Egungo Euskararen Hiztegia

—E—

[bertsioa: 2024-01-09]

---

e *(orobat **ee**, **eee**, **eeee**, eta **eeeee**) interj* deitzeko edo arreta eskatzeko hitza. **ei**[2].

- **E**, entzuten al didazu? -egin zion belarrietan oihu gizonak Ruche jaunari -. Jon Muñoz
- **E**, mugi hadi apur bat, kaiku handi hori -esan zion arrotzak. Iñaki Mendiguren
- **E**! metrailatzaile, oxigenoa ongi doa? Josu Zabaleta
- -Nahikoa dugu, **e**, nahikoa dugu! Xabier Mendiguren Elizegi
- 'Geldirik hor, **e**!' entzuten dut oraindik ere, denboran zehar. Joseba Sarrionandia
- Ulertu ez **e**? Patziku Perurena
- Tira, segi niri, baina kontuz, **e**? Iñaki Mendiguren
- -Ederra izan duk, **e**? Unai Iturriaga
- Egun bikaina, **e**? Iñaki Mendiguren
- Irainik ez, **e**! Antton Olano
- **E**, **e**, jakin duzue berria?, entzun genuen. Anjel Lertxundi
- **E**, niri, bai, niri ari zait, **e**, **e**, niri! Pablo Sastre
- Oraingoan, larrutan nabilela, barrabilak laztanduko dizkidazu, **e**, Imanol? Aitor Arana
- -Eta niri elizak molestatzen badit zer arraio egin behar dut, **e**? Harkaitz Cano
- -Barkatu, **e**! Ramuntxo Etxeberri
- -Gaztiak, **ee**? -galdetu dut. Txillardegi
- Ba zera, hau ez dun, **ee** gizon batek ezin din, izan ere, baina **ee** entzun, ez dun hori, ez dun. Anton Garikano
- - **Ee**! **Eee**!! Burutik zaude, ala? Patxi Iturritegi
- Ba, ba, orduan, **eee**... zer?, nola? Iñaki Segurola
- Garesti zeudek, ordea, k...; **eee**..., joino! Jesus Mari Mendizabal
- - **Eeee**... -esan zuen, frantsesek muturra luzatzeko duten era berezi horrekin. Xabier Mendiguren Elizegi
- - **Eeee**... beno, ba... uste dut horretan utziko zaituztedala... erosketa batzuk baditut egiteko... Eneko Bidegain
- - **Eeeee**? -Ninaren begirada kezkatua. Ramuntxo Etxeberri
- Esan **eeeee** eta hartu arnasa lasai sudurretik. Hasier Etxeberria

---

ea *(**267** agerraldi, **16** liburu eta **114** artikulutan; ETCn **52.840** agerraldi; orobat **eian** g.er.)* zehar galderazko esaldi txertatu baten hasieran, indargarri gisa ezartzen den hitza. (ikus beheko konbinatorian ea hitzaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ea (30); **begiratu ea** (9); **buruari ea** (14); **da ea** (80); **dago ea** (8); **daiteke ea** (9); **dela ea** (9); **dezagun ea** (14); **dio ea** (20); **diot ea** (31); **dira ea** (8); **dit ea** (12); **du ea** (40); **dugu ea** (39); **dugu ea zer** (8); **dut ea** (31); **dute ea** (19)

ea alderdiek (9); **ea aurkitzen** (8); **ea aurten** (12); **ea ba** (106); **ea ba ote** (14); **ea bada** (50); **ea behingoz** (27); **ea benetan** (23); **ea bera** (8); **ea berak** (13); **ea bere** (40); **ea berriro** (8); **ea beste** (31); **ea datorren** (11); **ea dena** (8); **ea eb** (10); **ea egia** (32); **ea egia den** (13); **ea elkarrekin** (12); **ea eta** (342); **ea eta aralar** (18); **ea eta eaj** (20); **ea eta eajren** (10); **ea eta eb** (116); **ea eta ebren** (11); **ea eta erc** (9); **ea eta ezker** (15); **ea eta iu** (12); **ea euskal** (11); **ea eusko** (10); **ea ez** (126); **ea ez al** (24); **ea ez ote** (33); **ea ezagutzen** (13); **ea ezer** (25); **ea gai** (13); **ea gaur** (13); **ea gauza** (11); **ea guk** (10); **ea gure** (14); **ea halako** (11); **ea han** (15); **ea handik** (8); **ea haren** (12); **ea hau** (13); **ea hemen** (9); **ea hori** (10); **ea horrela** (32); **ea hurrengo** (9); **ea ikusten** (9); **ea inoiz** (11); **ea inork** (10); **ea ko** (10); **ea koalizioa** (14); **ea koalizioak** (19); **ea koalizioaren** (11); **ea lortzen** (21); **ea lortzen dugun** (9); **ea nahi** (12); **ea ni** (11); **ea nik** (16); **ea nire** (22); **ea noiz** (69); **ea nola** (97); **ea non** (39); **ea nondik** (20); **ea nor** (28); **ea nor zen** (8); **ea nora** (14); **ea norbait** (8); **ea nork** (42); **ea ondo** (20); **ea ongi** (11); **ea orain** (28); **ea oraindik** (8); **ea posible** (15); **ea posible den** (8); **ea prest** (13); **ea ren** (11); **ea ulertzen** (10); **ea zein** (76); **ea zein den** (11); **ea zelan** (9); **ea zenbat** (23); **ea zer** (401); **ea zer egin** (34); **ea zer egiten** (24); **ea zer esaten** (8); **ea zer gertatzen** (36); **ea zer iruditzen** (17); **ea zer moduz** (19); **ea zer nahi** (14); **ea zer nolako** (12); **ea zer uste** (9); **ea zer zen** (9); **ea zerbait** (43); **ea zergatik** (146); **ea zergatik egiten** (8); **ea zergatik ez** (49); **ea zertan** (16); **ea zertarako** (16); **ea zure** (10)

eaj ea (101); **eaj ea eb** (10); **eaj ea koalizioa** (14); **eaj ea koalizioak** (19); **eaj ea koalizioaren** (11); **eaj eta ea** (62); **edo ea** (16); **egin zuen ea** (8); **ere ea** (14); **eta ea** (456); **eta ea alderdiek** (8); **eta ea eta** (9); **eta ea ez** (17); **eta ea nola** (10); **eta ea zein** (8); **eta ea zer** (33); **galdera da ea** (8); **galdetu dio ea** (9); **galdetu diot ea** (8); **galdetu ea** (21); **galdetu nion ea** (35); **galdetu zidan ea** (33); **galdetu zien ea** (14); **galdetu zigun ea** (8); **galdetu zion ea** (71); **galdetu zionean ea** (8); **galdetu zioten ea** (15); **galdetu zuen ea** (17); **galdetuz ea** (11); **galdetzea ea** (12); **galdetzeko ea** (11); **galdetzen diot ea** (10); **galdetzen ea** (11); **galdetzen nion ea** (10); **galdetzen zion ea** (8); **galdezka ea** (25); **ikus dezagun ea** (8); **ikusiko dugu ea** (16); **ikusteko ea** (15); **ikusten ea** (9); **jakitea ea** (11); **jakiteko ea** (16); **kontua da ea** (8); **naiz ea** (9); **neure buruari ea** (10); **nion ea** (67); **nion ea zergatik** (10); **nuen ea** (13); **nuke ea** (10); **orain ea** (14); **s ea** (15); **zen ea** (27); **zidan ea** (48); **zidan ea zer** (8); **zien ea** (20); **zigun ea** (11); **zion ea** (100); **zion ea zer** (12); **zion ea zergatik** (9); **zionean ea** (9); **zioten ea** (21); **ziren ea** (8); **zuen ea** (69); **zuten ea** (9)

---

ebagi ik **ebaki**[1].

---

ebain

1 ***ebain-ebain egin*** erabat jipoitu.

- Giltzapean sartzeak, ordea, **ebain-ebain egitea**, xehatzea, oinazaraztea esan nahi du. Gotzon Garate
- Hil baino bi egun lehenago Shakuntala **ebain-ebain egin** zuen senarrak eta etxetik atera, auzokoen aurrean. Gotzon Garate
- Salomon bizirik balego, **ebain-ebain eginda** utziko zintuzke. Lopez de Arana

---

ebakera **1** *iz* ebakitzeko era.

- Gozamena topatzen zuen xehetasun bakoitzean, itxuraren fintasunean, jauskeraren edertasunean, **ebakeraren** berezkoan, izur baten, kurba baten mugimenduan. Joxan Elosegi
- Emakumezkoetan, Rosi Labakak esku ez hartzea erabaki zuen, eta Urkolak ebaki zuen saila azkarren eta ongi eutsi zion lehen postuari **ebakeragatik** ez zutelako hainbeste zigortu. Berria - Kirola
- Teon Izmirrekoa (zenbakien teoria), Menelao (**ebakera** konikoak). Jon Muñoz

Haren itxura zurbil eta izutua alde batera, Ron ez zegoen Crabberengandik bereizterik: haren ile-**ebakera** berbera zuen, buruan katilua sartuta moztuta bezala, eta haren gorila-beso luzeak zituen. Iñaki Mendiguren

Burua biluzik, kapelua eskuan, moskutar **ebakerako** jaka alemaniarra soinean. Jose Morales

2 ahoskera.

Jakina da bokalak direla **ebakera** irekienak, ez dela igurtzirik sortzen, baina badela bokalen artean nolabaiteko ahoskune desberdintasuna. Lourdes Oñederra

Txistukari biak afrikatu baten bidez ahoskatzeak bilkuraren **ebakera** errazten duen bitartean, hotsa indartu egiten du. Lourdes Oñederra

Egia da halaber **ebakera** laxoak silaba luzeetan gertatzen direla, eta silaba laburrak arta handiagoa eskatzen du. Isabel Arrigain

Aurrenetako egun batean frantsesaren eta ingelesaren **ebakeraz** hitz egin zenigun, ingelesa zailagoa zela. Bernardo Atxaga

Zer dela eta gerta daiteke grafiaren eta **ebakeraren** arteko egokitasunik eza? Isabel Arrigain

Errazagoa da, **ebakeraren** aldetik, kontsonante bilkura osoan ahoskunea berdintzea. Lourdes Oñederra

Afrikatuetako hersketa poliki irekitzen da, denbora batez **ebakera**-organoak elkarrengandik nahiko hurbil daudelarik, tartetik igarotzen den aireak igurtzi zarata atera dezan. Lourdes Oñederra

Irakasten zena izen horien bitartez adierazten ziren ideiak zirela, eta ez letren **ebakera** soila, inolako ideiarik gabea. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baten ebakera (3); **ebakeraren aldetik** (3); **ebakeraren kalitatea** (3); **eta ebakeraren** (5); **grafiaren eta ebakeraren** (3)

---

ebaketa *(39 agerraldi, 19 liburu eta 13 artikulutan; ETCn 1.021 agerraldi)* *iz* ebakitzea; ebakuntza.

Edango dut... edango dut harik eta **ebaketa** bat eginez gero zaurietatik whiskya isuri arte. Lopez de Arana

Altzairuzko bobinak prozesatuko dituen prentsa bidezko **ebaketa** linea automatizatu bat egiteko kontratua lortu du Fagor Arrasatek Txinan. Berria - Ekonomia

Batzuk, hala ere, koadroaren laukizuzena proportzio "harmoniatsutan" banatzeko **ebaketa**-eredu "unibertsalak" proposatzera ere iritsi dira. Josu Zabaleta

Edurne Pasaban eta Juanito Oiarzabal mendizaleei gaur egingo die **ebaketa** Kiko Arregi medikuak, Zaragozan. Berria - Kirola

Prepuzioak mozten dituen tipoa da mohel hori, goi-mailako zeregina da Moisesen erlijioan, baina gure Keni **ebaketa** egin ziona Noerengandik zegoen hurbilago. Karlos Zabala

Eskuin hankako belaunean **ebaketa** egin behar izan diote, eta sei hilabetez egongo da jokatu ezinik. Berria - Kirola

Tontakeria omen zen apendize-**ebaketa**. Iban Zaldua

Cos entrenatzaileak Ligan minutu gutxi jokatzen ari diren jokalariak zelairatuko ditu, eta horien artean litekeena da Josu Sarriegi berragertzea, meniskoetako **ebaketa** baten ondoren osatuta. Berria - Kirola

Tipo bat zegoen han, **ebaketa**-mahaiko hanketan kateaturik, nik dakit zer arraio salmodiatzen. Joxan Elosegi

Aldamenean zeukan alaba, benetako kirurgia-**ebaketa** balitz bezala. Javi Cillero

Eta betaurreko biribil haiek, **ebaketa** gelako argi itsugarrietan dir-dir. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ebaketa egin (9)

---

ebaki[1] *(1464 agerraldi, 195 liburu eta 201 artikulutan; orobat **ebagi** 10 agerraldi, 2 liburutan)* **1** du *ad* lanabes aho-zorrotz baten bidez zerbaiten jarraitasuna eten, zerbait bereizi edo zatitu. ik **moztu**.

Orduan, soldaduek sokak **ebaki** eta txalupa erortzen utzi zuten. Elizen arteko biblia

Lepoko zaina **ebaki** nien animaliei, eta zuloetara hustu nuen odola. Juan Kruz Igerabide

Robertek zainak **ebaki** zituen bainuontzian. Eskarne Mujika

Zalditeria osoari hanka-zainak **ebaki** zizkion, baina beretzat gorde zituen ehun gudu-gurdi beren zaldiekin.

Ez ditut 99 urte kartzelan pasa nahi nire senar onari zintzurra **ebaki** niolako. Harkaitz Cano

Hala ere, oldartu zitzaion Nemo kapitaina olagarroari, eta, aizkorakada batez, beste beso bat **ebaki** zion. Elizen arteko biblia

130 milioi andreri **ebaki** zaie klitoria, eta urtero egiten da gauza bera beste bi milioirekin. Pello Salaburu

Hamar enbor **ebaki** zituzten lehian jardun zuten bost aizkolariek. Berria - Kirola

Ondo **ebakitzen** badu, ona da aizkora; komunikaziorako tresna egokia bada, ona da hizkuntza. Joxerra Garzia

Laurak batera 45 ontzako zutikako enbor bana **ebakiko** dute (3, 2, 1, 0 puntu). Berria - Kirola

Emilek aiztoa ahurretik pasatu eta saltxitxoia kontu handiz **ebaki** zuen. Lopez de Arana

Fruitu lehorrezko tartatik puska handi bat **ebaki**, paperean bildu eta esan zion: [...]. Irene Aldasoro

Aiztoa harturik, begi gainean hazitako haragia **ebaki** zion. Askoren artean

Nekazari bati mahasti bat **ebaki** baino hobe duzue hanka bat **ebaki**: min gutxiago egingo diozue. Koldo Biguri

Artikulua **ebaki** eta karpeta batean gorde nuen. Joan Mari Irigoien

Garai batean garia, igitaia hartu eta eskuz **ebaki** behar izaten zen. Pako Aristi

Harrikatu egin zituzten, zerraz **ebaki**, ezpataz hil. Elizen arteko biblia

Zerrenda mehetan **ebaki** larrua. Jon Muñoz

Labana hartu eta librako ogitik hiru zati **ebaki** zituen. Joseba Sarrionandia

Belar **ebaki** berriaren usaina zekarren aireak eta. Anjel Lertxundi

Jainkoaren aingeruak hartu du zigor-agindua eta erdi-erditik **ebakiko** zaitu. Elizen arteko biblia

Egurra egiten zuten anaiei, debekatu egiten zien zuhaitza orpotik **ebakitzea**, kimu berritzeko aukera izan zezan. Askoren artean

Buztan osoa ipur-mokorretik **ebakia**, heste inguru eta gaineko gantza. Elizen arteko biblia

Izterrezur edo femurra, luzetara **ebakia**. Irene Aldasoro

Bi xerra **ebakitzen** ditut; gero geldi geratzen naiz. Eskarne Mujika

Libra erdi bat soltxitxoi, xerretan **ebakia**. Lopez de Arana

Egutegiko aktoresa politen aurpegiak **ebakitzen** nituenean. Juan Kruz Igerabide

2 irud/hed

Brankak Golkoko Korronteko olatu berdexkak bortizki **ebakitzen** zituen. Lopez de Arana

Elkar **ebakitzen** duten bi zuzenek lau angelu eratzen dituzte. Jon Muñoz

Talesen arabera, bi zuzen elkar **ebakitzean** eratutako angeluetatik, berdinak dira erpinekiko aurkakoak. Jon Muñoz

Zeren espazio hartan heriotzaren itzalak noiznahi-den **ebaki** baitzitzakeen eta sega, errotik, amesgaiztoen artetik loratzen ziren amets urdin bakanak. Joan Mari Irigoien

Eta **ebaki** zuen zigorrak airea hamaika aldiz. Joan Mari Irigoien

Hiru sastakok arnasa **ebakitzen** ziotela sentitu zuen. Imanol Zurutuza

Samurtu du orain aurpegia **ebaki** dion tentsioa. Pako Aristi

-Bakea emak - **ebaki** zion espantua Gaxtonek-. Itxaro Borda

Idazten den bezala **ebaki** zuen izena. Bernardo Atxaga

Maitasun hitzak batarengandik bestearengana iragan ziren; hasperenka **ebaki**, irribarre eragin eta higatu egin ziren. Juan Garzia

-Hark zeuzkak kulpa guztiak - **ebakitzen** du begigorriak. Iñaki Iñurrieta

Haren ahots gordinak labana baten modura **ebaki** zuen isiltasuna. Anjel Lertxundi

Senarren loa **ebakitzen** dute bristadan. Itxaro Borda

Arnasa **ebaki** izan baliote bezala. Joan Mari Irigoien

Egunsentia gaua **ebakitzera** datorren labana da. Pako Aristi

· Ilargi zuritan **ebakitzen** zen castillo baten puskailetan neukan finkatua behakoa: mendi aski altu baten gailurrean, ibar mehar, basa eta huts baten hondoan. Koldo Izagirre

3 ahoskatu.

Idazten den bezala **ebaki** zuen izena. Bernardo Atxaga

Ohi baino ozenago **ebakitzen** zituen hitzak, hori zen dena. Bernardo Atxaga

Maitasun hitzak batarengandik bestearengana iragan ziren; hasperenka **ebaki**, irribarre eragin eta higatu egin ziren. Juan Garzia

Hotsik gabeko hitza, esanahiaren sasiak jana, aho-mihiz **ebaki** baino lehen noraino iritsiko den ikusia dagoena. Iñaki Segurola

Azken hitzak **ebaki** bezain laster Juanak ondoan den gelako atea ireki eta barrenera jo du. Pello Lizarralde

R letra oso gogor **ebakitzen** zuen. Juan Garzia

Ezpainak mugitu ditu ezer **ebaki** aurretik. "Goyen", esan du azkenik, eta "Eche" istant baten buruan. Pello Lizarralde

Aintzat hartu behar dugu horretarako trabari sabaikariak **ebakitzeko** erabiltzen den mihiaren zatia nolakoa den. Lourdes Oñederra

Ez zuen hitzik esan; eta nik ahaleginak eginda ere ezin nuen silabarik **ebaki**. Koro Navarro

Izen argiro **ebakia**, garbiki artikulatua. Xabier Kintana

Tamalez, gauzak ez dira guk nahi bezala gertatu, erantsi zuen amak, zotinei eusteagatik hitzak garbi **ebakitzeko** gaitasunik gabe. Anjel Lertxundi

Beste zerbitzariak [...], hitzak **ebakitzeko** doinuak salatzen duenez alsaziarra ezbairik gabe, zizpako fusila eta pistola ekarri ditu. Felipe Juaristi

4 (era burutua hitz elkartuen osagai gisa)

Epai-belar deitzen zaie santio-belar edo milazulo, ebakiak garbitzeko eta sendatzeko erremediotan erabiltzen diren hyperycon eta **ebaki**-belar horiei. Pello Zabala

Ogidiz ogidi, dena **ebaki**-azantz mehar. Berria - Kultura

Hots, **ebaki**-kolpeak xuxen eta garbiak, talibans delakoen kontra igorriak eta ez Afganistandarren kontra. Herria

· Beren zinkezko teilatuko garajearekin, beren etxe atzeko zakur etxola eta zelaitxo belar **ebakiarekin**. Koro Navarro

Paper- **ebakitzekoa** hartu, ageri-agerian baitzeukan lan-mahai gainean, eta gutun-azala ireki zuen Holmboek. Jon Muñoz

5 (era burutua izenondo gisa)

Urrun zekuskien, sastraka zikinen adar **ebakiak** bezala, lurrean botata. Pako Aristi

Urdaiazpiko **ebaki** bat zegoen ikusgai azpil urdin handi batean, eta, haren ondoan, aran-pudding oso arin baten puska bat plater batean. Irene Aldasoro

Aguretxo txiki, argal bat zen, oso garbia, oso txukuna, bizar gris ongi **ebakia** erabiltzen zuena. Josu Zabaleta

6 ***ebaki-ebaki egin.*** ebain-ebain egin.

Birikak betetzera iritsi ezin, orain mina eta guzti ematen dio arnasa hartzeak, min zorrotza, lehertzeko modukoa, edonor txiki-txiki eta indar usteko asko **ebaki-ebaki eginda** utziko lituzkeena. Filistearrak Baal-Peratzimera etorriak ziren. **Ebaki-ebaki egin** zituen han Davidek. Pako Aristi

-Ebaki-ebaki eginda nagon! Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azkarren ebaki (4); **bat ebaki** (21); **bat zeinek ebaki** (3); **batera zeinek ebaki** (3); **batez ebaki** (3); **belar ebaki** (7); **belar ebaki berriaren** (4); **belarra ebaki** (3); **belarria ebaki** (3); **bitan ebaki** (3); **burua ebaki** (3); **da ebaki** (3)

; ebaki ahala (3); **ebaki aizkorakada** (3); **ebaki aizkorakada gutxienean** (3); **ebaki azkarren** (3); **ebaki banizkio** (5); **ebaki bat** (30); **ebaki bat egin** (8); **ebaki bat egiten** (3); **ebaki baten** (3); **ebaki batzuk** (3); **ebaki behar** (22); **ebaki behar izan** (3); **ebaki beharko** (49); **ebaki beharko ditu** (14); **ebaki beharko dituzte** (14); **ebaki beharko du** (9); **ebaki beharko dute** (6); **ebaki berriaren** (4); **ebaki berriaren usaina** (3); **ebaki du** (6); **ebaki ebaki** (5); **ebaki ebaki egin** (3); **ebaki egin** (12); **ebaki egin behar** (3); **ebaki egin beharko** (3); **ebaki egingo** (3); **ebaki egiten** (10); **ebaki egiten du** (3); **ebaki eta** (49); **ebaki gabe** (5); **ebaki izan** (3); **ebaki lehengoak** (3); **ebaki lehengoak bezalako** (3); **ebaki nituen** (3); **ebaki nuen** (7); **ebaki ondoren** (5); **ebaki sakon** (4); **ebaki sakona egin** (3); **ebaki zion** (14); **ebaki zituen** (25); **ebaki zituzten** (13); **ebaki zizkion** (3); **ebaki zuen** (56); **ebaki zuen eta** (3); **ebaki zuen kilo** (4); **ebaki zuen zigorrak** (3); **ebaki zuten** (10)

enbor ebaki (38); **enbor ebaki behar** (3); **enbor ebaki beharko** (24); **enbor ebaki zituzten** (6); **enbor osoa ebaki** (8); **erditik ebaki** (4); **ere ebaki** (3); **ertza ebaki** (4); **eta ebaki** (19); **ganibetaz ebaki** (3); **gehiago ebaki** (3); **gutxiago ebaki** (5); **gutxiago ebaki zituen** (3); **hamar enbor ebaki** (3); **hanka zainak ebaki** (3); **hegoak ebaki** (10); **hegoak ebaki banizkio** (4); **hitzak ebaki** (3); **hitzik ebaki** (3); **kilo gutxiago ebaki** (3); **nola ebaki** (4); **oinbikoa ebaki** (4); **oinbikoa ebaki beharko** (3); **ongi ebaki** (3); **osoa ebaki** (8); **osoa ebaki beharko** (8); **pago enbor ebaki** (4); **saila ebaki** (3); **segundoan ebaki** (4); **segundoan ebaki zituen** (3); **sei enbor ebaki** (4); **soingainekoaren ertza ebaki** (3); **zainak ebaki** (13); **zeinek azkarren ebaki** (4); **zeinek ebaki** (6); **zeinek ebaki aizkorakada** (3); **zeinek ebaki azkarren** (3); **zintzurra ebaki** (4); **zortzi enbor ebaki** (4)

bana ebakiko (5); **bana ebakiko dute** (5); **ebakia egin** (8); **ebakia eta** (6); **ebakiak egin** (3); **ebakiko ditu** (10); **ebakiko ditu eta** (5); **ebakiko dituzte** (12); **ebakiko dute** (17); **ebakiko dute eta** (6); **ebakitako ilea** (3); **egurra ebakiko** (3); **egurra ebakiko dute** (3); **enbor bana ebakiko** (3); **enbor ebakiko** (16); **enbor ebakiko ditu** (10); **enbor ebakiko dituzte** (6); **enborra ebakiko** (3); **eta ebakia** (3); **eta ebakiak** (4); **gutxiago ebakita** (4); **hamar enbor ebakiko** (3); **kilo gutxiago ebakita** (3); **lepoa ebakita** (3); **nola ebakiko** (3); **ontzako egurra ebakiko** (3); **saila ebakiko** (7); **saila ebakiko dute** (7); **segundoan ebakita** (4); **zortzi enbor ebakiko** (5); **zuen ebakia** (3)

airea ebakitzen (4); **bana ebakitzen** (3); **bana ebakitzera** (4); **bat ebakitzeko** (4); **bat ebakitzen** (15); **bat ebakitzera** (20); **bat ebakitzera puntu** (8); **belarra ebakitzekoa** (3); **belarra ebakitzen** (3); **bi kanaerdiko ebakitzera** (5); **burua ebakitzen** (3); **ebakitzeko eta** (8); **ebakitzeko prest** (3); **ebakitzen ari** (17); **ebakitzen ari zen** (6); **ebakitzen da** (3); **ebakitzen denean** (5); **ebakitzen dira** (4); **ebakitzen diren** (10); **ebakitzen ditu** (3); **ebakitzen dituzte** (4); **ebakitzen du** (8); **ebakitzen duen** (9); **ebakitzen dute** (3); **ebakitzen duten** (7); **ebakitzen eta** (7); **ebakitzen ez** (3); **ebakitzen hasi** (4); **ebakitzen zituen** (11); **ebakitzen zituen hitzak** (5); **ebakitzen zuen** (15); **ebakitzen zuen bitartean** (3); **ebakitzen zuten** (7); **ebakitzera puntu** (8); **egurra ebakitzen** (3); **egurrak ebakitzeko** (4); **egurrak ebakitzen** (4); **elkar ebakitzen** (8); **elkar ebakitzen duten** (3); **enbor ebakitzen** (3); **enborra ebakitzen** (6); **enborrak ebakitzeko** (4); **eta ebakitzeko** (3); **etzandako oinbikoa ebakitzen** (3); **ez ebakitzeko** (3); **garia ebakitzeko** (3); **garia ebakitzen** (3); **kanaerdiko bana ebakitzera** (4); **kanaerdiko bat ebakitzera** (11); **kanaerdiko ebakitzera** (7); **oinbiko bat ebakitzen** (3); **oinbiko bat ebakitzera** (7); **oinbikoa ebakitzen** (6); **ondo ebakitzen** (3); **ondo ebakiz** (3); **ongi ebakiz** (3); **ontzako bat ebakitzen** (3); **ontzako ebakitzera** (3); **ontzako enborra ebakitzen** (3); **txatalak ebakitzen** (3); **xerrak ebakitzen** (3); **xerrak ebakitzen ari** (3); **zintzurra ebakitzeko** (3)

---

ebaki[2] **1** *iz* ebakidura.

Elementu nagusia karaitza da, **ebaki** eta pitzatuz markatutako harri txuria. Bernardo Atxaga

Gero, **ebakia** egingo dio hego artean, baina hegaztia bitan banandu gabe. Elizen arteko biblia

Ebaki bat egin, hezur bat hautsi edo beste edonolako eraso bat gertatu eta ehuna kaltetu denean ere agertzen dira granulozitoak. Irene Aldasoro

Diskoekin hainbat **ebaki** egiten zizkion harriari, blokearen barruko egitura agerian uzteko. Berria - Kultura

Ikusten dena, egindako **ebakiaren** ordez **ebaki** zuta egiten badugu ikus ahal izango diren zuntz luzeen perspektiba da. Isabel Arrigain

Goiko mutturrean **ebaki** bat zuela. Pello Zabala

Bere zauri txit sakratuak nire **ebaki** bakoitzaren gainean jarri ditu. Askoren artean

Beste irudi batzuetan, lepoan **ebakia** zuen preso bat ageri da, inguruan soldaduak zituela. Berria - Mundua

Ebaki bat masailan, beharbada goiz hartan bertan bizarra mozten egina. Bernardo Atxaga

Zimur bat, arrastoa utzitako **ebaki** bat, bestelako markaren bat. Joxemari Urteaga

Ebaki handi baten sakaila zeukan belaunaren gibeletik goiti, otsolaharra makilan iduri. Koldo Izagirre

Ahoa, ezkerrerantz apur bat okerturik destain-imintzio moduko batean, **ebaki** bat bezalako mehar-zorrotza zen. Juan Garzia

Horretarako, **ebaki** txiki bat egiten da eskrotoan -1 cm ingurukoa-, hau da, barrabilak biltzen dituen estalkian, espermatozoideak pasatzen diren hodiak moztu eta muturrak

josteko. Luis Elberdin

Amak, aldiz, **ebaki** larriak zituen. Berria - Euskal Herria

Haien aurretik igarotzean, Malfoyren besoan **ebaki** sakon eta luzea ikusi zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

Sirius odola zeriola zegoen; **ebaki** sakonak zituen muturrean eta bizkarrean. Iñaki Mendiguren

Arrautza gisako **ebaki** sakon bat egin. Xabier Olarra

Labanaz **ebaki** gurutzatu bi egin zizkidaten belaun gainean, izterreko zorne kopuru izugarria estutu, eta dena paperez bildu zidaten. Urtzi Urrutikoetxea

Aurpegian alderik alde **ebaki** orbaindu bat zuen, ahoa gurutzatu eta kokosperaino zihoakiona. Fernando Rey

Gaizki orbainduriko **ebaki** bat zeukan begitartean, alderik alde. Karlos Zabala

Dena zauri, ubeldura eta **ebaki** bizi, batere garbitu, lotu eta olioz gozatu gabe. Elizen arteko biblia

Ontziak baino, ez ote dira aiztoarekin urari egindako **ebaki** ezinezkoak? Harkaitz Cano

Bideak kosta inguruko gainetatik egiten zuen, mendia **ebakiz**, eta arbelezko geruza ia bertikalak uzten zituen agerian. Ramon Saizarbitoria

2 esne pixka bat botaten zaion kafe kikara.

Nahikoa da edozein kafetegitara sartzea kafea egin eta edateko mila forma ezagutzeko: hutsa, esnearekin, **ebakia**, amerikanoa, pattarrarekin, luzea, laburra... J.M. Olaizola "Txiliku"

Joselu... **ebaki** bat, mesedez! Unai Iturriaga

-Ados, hiru birra... eta **ebakia** pinpirinarentzat! Unai Iturriaga

Hemen dituzue kafeak: hutsa eta **ebakia**. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai ez oso aspaldikoaz oroitu naiz, eta Gasteizko Marañón kafetegian **ebaki** bat eskatu, eta leiho ondoko mahaian esertzea atsegin izaten nuela, handik oinezkoei erreparatzeko. Patxi Zubizarreta

Jokinek **ebaki** bat ekarri zuen beretzat. Unai Iturriaga

· Kafe **ebaki** bat eskatu zuen. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ebaki handi (3); **ebaki sakona** (4); **ebaki txiki** (4); **ebaki txiki bat** (3)

---

ebakialdi *iz* ebakitzen den aldia.

Belarra, lehen **ebakialdikoa** da, eta ez du aitzakiarik. Berria - Kirola

Arraiotzen jokatzea ere pentsatu genuen, baina bigarren **ebakialdiko** belarra da, eta eskasa. Berria - Kirola

Maiatzean, belarraren lehenengo **ebakialdikoan**. Josu Zabaleta

---

ebakiarazi, ebakiaraz, ebakiarazten du *ad* ebakitzera behartu.

Ados nago belarra txukun **ebakiarazi** beharra dagoen kontuarekin. Berria - Kirola

---

ebakidura *iz* **1** ebakitzea; ebakia.

Arrano baten mokoa dirudi haren sudurrak, erbi batena bezalako **ebakidura** du goiko ezpainean, sufre-hatsa botatzen du ahotik. Anjel Lertxundi

"Ebaki egin ditu Jainkoak nire etsaiak nire bitartez, uholdeak **ebakidura** egin ohi duen bezala". Horregatik deritza toki hari Baal-Peratzim, hau da, **"Ebakiduren** Jauna". Elizen arteko biblia

Norabide hori zuzen dezaket, nolabait, puntzoi honekin **ebakidura** paralelo bat eginez". Iban Zaldua

Hiru azaleren **ebakiduraren** bitartez: konoa, zilindroa eta torua. Jon Muñoz

Izterrezur-buruaren zeharkako **ebakidura**. Irene Aldasoro

Nola zehaztu jarraitasun-eza pentsatzea zilegitzen duten kontzeptuak (atalasea, haustura, **ebakidura**, mutazioa, eraldaketa)? Xabier Arregi

2 matematikan, aldi berean bi multzo edo gehiagoko diren elementuen multzoa.

X baldin bada xelebreen multzoa eta z Xren eta C'ren **ebakidura**, elementu bakar bateraino murriztua. Xabier Olarra

---

ebakiera *iz* **1** ebakitzeko era.

Ebakiera txarrarekin jarraitzen badu, txartel urdina aterako dio zuzenean, eta hurrengoan gorria, beste 20 kilo kenduko dizkiotelarik. Berria - Kirola

2 ahoskera. ik **ebaki**[1] **3**.

Gauza bera hitz edo perpausekin, **ebakierarekin** edo intonazioarekin; azkarra nintzen edozein bitxikeria imitatzeko. Xabier Olarra

Laster ekiten dio jardunari; liburuaren titulua irakurtzen du estreina **ebakiera** garbiz: [...]. Karlos Linazasoro

Daneri-ren ahozko hitz- **ebakiera** bitxia zen; bertsoaren neurri kontuan hain trakets izateak eragotzi zion, salbuespen bakanen bat gora-behera. Juan Garzia

---

ebakierraz *izond* erraz ebakitzen dena.

Hiru bilakabide mota bereizten dira: *lenitio* edo *ahultze*E bilakabideak ordezkatzearen poderioz TASUN konbinaketa ahulagoa, **ebakierrazagoa**, lortzen denean. Lourdes Oñederra

---

ebakiezin **1** *izond* ezin ebakizkoa. ik **ebaki**[1] **3**.

Demokritok eta jarraitzaile izan zuen Epikurok, atomoak zirela zioten, gure autoreek gorputz **ebakiezinak** deitu zituztenak, eta beste batzuk zatiezinak deitzen dituztenak. Santiago Iruretagoiena

2 ahoskaezina.

Hurkoei gaztigatzea, familiari, lagunei, telefonoz deitzea, hitz **ebakiezinak** ebakitzea: nola hitz egin hauei guztiei? Joxan Elosegi

---

ebakigailu *iz* ebakitzeko gailua.

Herrizaingo Sailaren arabera, **ebakigailu** bat erabili zuen gazteak gizonezkoa beldurtzeko. Berria - Euskal Herria

Ebakigailu bat eta biktimaren diru zorroa zeramatzan soinean. Berria - Euskal Herria

ebakigarri 1 *izond* ebaki daitekeena.

Irudika genezake konplexurik gabe kartoi **ebakigarrizko** hiri hau zubiko alanbreek sostengatua. Harkaitz Cano

2 ahoskagarria. ik **ebaki**[1] **3**.

Hitzak osatzen dituzten hotsak ez dira bereizgarri bakarrik izaten, gainera, **ebakigarri**, konbinagai eta hautemangai (artikulatuak eta entzunerrazak) izan behar dute. Lourdes Oñederra

ebakigune *iz* ebakiaren gunea.

Luzetara datozen lerro horiek buruetako beste zirkularrekin elkartzen diren lekuan elkar ebakiko dira, eta **ebakigune** horietan puntuak markatuko dira. Santiago Iruretagoiena

Oholtxo batzuk jarri zituzten habeen burualdeak estaltzen, oraingo gure triglifoen antzekoak, eta argizari urdinarekin pintatu zituzten, habeen **ebakigunea** ezkutatu eta begira minik egin ez zezaten. Santiago Iruretagoiena

Bi puntu horietatik elkar ebakitzen diren bi zirkulu egin behar dira, eta **ebakigunetik** eta hasierako zirkuluaren zentrotik pasatuz, lerro bat egingo da muturreraino, eta horrekin izango ditugu hegoaldea eta iparraldea markatuta. Santiago Iruretagoiena

Lerroen norabideei erreparatzera mugatzen zen, zimenduetatik hasi eta gailurretaraino; eta elkar **ebakigunera** zihoazen lerro zuzenen konbergentziari. Juan Garzia

ebakikidetza *iz*

Ebakikidetza da elkarren segidan ahoskatzen diren hotsen arteko elkarreragina ahalbidetzen duena: hotsak ez dira banan-banan hasi eta bukatu egiten. Lourdes Oñederra

Hizketaren denborazkotasun horretan, kontuan izan behar den arazo bat **ebakikidetza** da. Lourdes Oñederra

ebakin *iz* egunkari, liburu eta kidekoetako orriren batetik ebakitzen den zatia.

Ebakin bat zen, Parisko egunkari batetik moztua. Aingeru Epaltza

Aldizkarietatik moztutako **ebakin** asko ere baziren. Hasier Etxeberria

Mahaitik zutitu eta hormetako batera inguratuta, kortxozko panel handian itsatsi zituen txintxetaz bi argazkiak, beste argazki eta **ebakin** guztien ondoan. Joxemari Iturralde

Gauza bitxi asko dago bertan: errazionamendu-kartilak, Errepublika garaiko diruak, Tetuango postalak, Errealak Santanderren jokatu zuen Kopako finalaren gaineko kronikaren egunkari-**ebakin** horiztatua... Iban Zaldua

Beste **ebakin** bat hartu nuen eskutan: "Fusilamiento de Antxusa". Txillardegi

Paper zuri tikia luzatu zidan, prentsa **ebakinen** ondotik hartuta. Aingeru Epaltza

Nire **ebakinen** albuma mahai gainean utzi eta eseri egin nintzen. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ebakin bat (3); **ebakin liburu** (3); **ebakinen albuma** (6); **nire ebakinen albuma** (3)

ebakiondo 1 *iz* ebaki edo zauri batek osatu ondoren azalelan uzten duen seinalea. ik **orbain**.

Orban, orezta, **ebakiondo** edo anputazioren bat? Rafa Egiguren

Kapitaina, aldiz, itsusia zen, aurpegia **ebakiondo** luze batek gurutzatzen zion, gaztetan muturrez aurrera pertz herdoildu baten gainera erori balitz bezala. Fernando Rey

Bazen edade ertaineko mulata bat, gizentxoa, bekokian **ebakiondo** bat zuena eta Willemi begirik kentzen ez ziona. Juan Garzia

Ezinekoa iruditzen baitzitzaion, osagilerik onenen eskutan sendatua izanda ere, aurpegia eta soin guztia **ebakiondo** eta seinalerik gabe izatea. Patxi Ezkiaga

Begi gainean **ebakiondo** bat zuen eta hortik odol-tanta batzuk isurtzen ziren masaila, jaka eta alkandoraraino. Lopez de Arana

Ebakiondo belztu batek ezker-eskuin zeharkatzen zion bekokia. Lutxo Egia

Gordin gorririk baitirau oraino hire **ebakiondoak** daniar ezpataren menean. Juan Garzia

2 irud/hed

Haritzezko enbor puska eskerga zen, txit astuna, **ebakiondoz** eta ildoxkaz josia. Karlos Zabala

Hainbeste urte igaro ondoren ere, trintxera zaharren **ebakiondoak** nabaritu zituen lurrean. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ebakiondo bat (3)

ebakitxo *iz* ebaki txikia.

Ebakitxo bat besterik ez. Iñaki Iñurrieta

Eskuan egin berri dudan **ebakitxoa**. Jenaro Garate

ebakitzaile 1 *izond* ebakitzen duena.

Ez zidan onik egin hitz horrek, horrela, maritxu, erran zuen gisan, portuko garabi goitituenetik eroritako xafla **ebakitzailea**. Koldo Izagirre

Esku bietako azkazalak burdinazkoak bihurtu zitzaizkion, bizar-labana bezain zorrotz eta **ebakitzaileak**. Askoren artean

D eta D' zuzen **ebakitzaile** bikotean, AA', BB', CC', lerro paralelo multzoak proportzioan dauden zuzenkiak ebakitzen ditu. Jon Muñoz

2 ahoskatzailea. ik **ebaki**[1] **3**.

Esku bietako azkazalak burdinazkoak bihurtu zitzaizkion, bizar-labana bezain zorrotz eta **ebakitzaileak**. Askoren artean

3 (izen gisa)

Bizitzan gertatzen denaren alderantzizkoa gertatzen zen matematikan: lehenik **ebakitzailea** "barruan sartu", eta ukitzailea laztanka gero. Jon Muñoz

Bada, **ebakitzaile** baten limitea, kurba ebakitzen dueneko bi puntuak, M eta M', "elkarrengana infinituki hurbiltzen" direnean. Jon Muñoz

ebakitze 1 *iz* lanabes aho-zorrotz baten bidez zerbaiten jarraitasuna etetea, zerbait bereiztea edo zatitzea.

Marjolinek **ebakitze** taula ere ez zuen garbitu; untxiaren oin moztuak haren ondoan zeuden artean. Karlos Zabala

2 ahoskatzea. ik **ebaki**[1] **3**.

Handik denbora batera, ohartuko ginateke desberdintasun nabarmenak azaldu direla lehen tokiko hizkuntzaren (T-ren) eta bigarren tokiko hizkuntzaren (T'-ren) artean, hiztegi, gramatika, **ebakitze** eta abarren aldetik. Isabel Arrigain

Esaterako, goi Saboiako Douvaine herrian Geneva *xxx* ahoskatzen da; **ebakitze** hori urrutiraino zabaldua dago ekialdetik eta hegoaldetik. Isabel Arrigain

---

ebakor **1** *izond* ebakitzen duena.

Volksgeist edo herriaren arima geografiaren peko jartzearen aurka Ortegak ailegatzen duen arrazoi **ebakorragoa**, bere arrazoi filosofiko substantziala, zera da: historiaren mekanizismo ("fisika") hori historiaren ukoa dela, eta azken batean arimaren (izpirituaren) ikuspide hori, arimaren ukoa. Joxe Azurmendi

2 (adizlagun gisa)

"xxxx", erantzuten du T. Aranzadi-k **ebakor**. Joxe Azurmendi

---

ebakortz *iz* ahoaren aurrealdeko hortz ebakitzailea.

Ahoa zabalik ageri du, **ebakortzak** bistan, baina ezpainak ez ditu inolaz ere moreak, itotako bati legokiokeen bezala. Ramon Saizarbitoria

Nerbioaren tratamendu gogor bat ari zaizkit egiten, **ebakortzetako** batean gainera. Josu Zabaleta

Bibotetxo fina dauka eta hutsune txikia **ebakortz** zuri eta zabal bien artean. Urtzi Urrutikoetxea

Hortzak ere palanka-sistema baten parte dira; 3,5eko desabantaila mekanikoa dago **ebakortzetan**, eta 1,7koa haginetan, hau da, mastekatze-lan gogorrena egiten den lekuan; haginek, bada, hortzek baino bi aldiz indartsuago estutzen dute. Irene Aldasoro

---

ebakuatu *(**43** agerraldi, **6** liburu eta **22** artikulutan; ETCn **1.021** agerraldi)* ebakua, ebakuatzen **1** du *ad* toki batetik, arriskugarria delako, han daudenak aterarazi.

Napoleonek Errusia inbaditu zuenean, Mosku **ebakuatzeko** agindu zuen, defendatu beharrean. Karlos Zabala

Herria itsasoz **ebakuatu** zutela kontatu nion. Edorta Jimenez

Zeren arazo nagusia hiria **ebakuatzea** baitzen, eta hori egiteko, biderik gehienak armaz eta gudariz zainduak zeuden. Karlos Linazasoro

Hobe zela komentua **ebakuatzea**. Edorta Jimenez

Santutegia **ebakuatua** izan da eta honen giltzak Marjaia erlijio agintaritzaren eskuetan daude. Berria - Mundua

Bilbo **ebakuatzean** Santoñara pasa zen; bertan desartilatu eta ondoren Bordelera. Edorta Jimenez

Dike bat lehertu da eta 5.000 lagun **ebakuatu** dituzte Errumanian. Berria - Mundua

1937an beste hogeitaka mila haur **ebakuatu** zituzten Frantziara eta Belgikara. Jokin Urain

Sri Lankako hotel batetik **ebakuatu** zutela jakin zen atzo. Berria - Mundua

Danubio ibaia bere maila gorenera iritsi eta milaka pertsona **ebakuatu** dituzte. Berria - Mundua

Hamar eta hamaika urte zeuzkaten **ebakuatu** zituztenean. Jokin Urain

2 (hitz elkartuetan)

1937ko martxoaren 20an iritsi zen Olerongo uhartean prestatutako udalekura Bilbotik abiatutako lehen **ebakuatu** multzoa, bost eta hamabi urte bitarteko 450 ume taldea. Jokin Urain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ebakuatu behar** (4); **ebakuatu behar izan** (3); **ebakuatu dituzte** (5); **ebakuatu zituzten** (5); **pertsona ebakuatu** (4)

---

ebakuazio *iz* ebakuatzea.

Bilbora joan zen Pasaiako **ebakuazioan** (1936-IX-13). Edorta Jimenez

Steer-en kronikak haurren, emakumeen eta zaharren **ebakuazioez** zertzelada ugari dakartza. Jokin Urain

Jesus Galindezek **ebakuazio**-sailekoa den Ruilope izeneko funtzionarioari erakutsi dizkio Xarrien zorionekoaren pasaportea eta ibiltzeko baimena. Edorta Jimenez

Sharonen hurrengo urratsa **ebakuazio** planaren moldaketa izango dela dirudi. Berria - Mundua

Margot eta Anne, Auschwitzetik Bergen-Belsen-era (Alemania iparraldera) eraman zituzten, **ebakuazio** espedizio batean, urriaren bukaera aldera. Josu Zabaleta

Bizilagunen **ebakuazioan** eta etxeen suntsiketan, 5 lagun zauritu ziren. Berria - Mundua

Ebakuaziorako Oinarrizko Gida. Karlos Linazasoro

---

ebakuntza *(**907** agerraldi, **164** liburu eta **325** artikulutan; ETCn **9.324** agerraldi)* **1** *iz* gorputz bizi batean, zati hondatu bat erauzteko edo osatzeko, egiten den zernahi eragiketa. ik **operazio**.

Ebakuntzagatik izan ez balitz, honezkero lurpean izango zen. Imanol Zurutuza

Hanturarena azaldu zioten gero, eta zirujauari ere deitu ziotela badaezpada, berriro **ebakuntza** egin beharra bazegoen ere. Imanol Zurutuza

Duela bi urte erabaki zuen urdaila txikitzeko **ebakuntza** egitea. Berria - Euskal Herria

Bost orduko **ebakuntza** egin zioten horretarako. Berria - Gaiak

Alferrik da **ebakuntza** egitea. Karlos Zabala

Hiru aldiz baliatu naiz kirurgia estetikoaz, bi **ebakuntza** aurpegian eta bat bularretan. Karlos Zabala

Bizkarreko **ebakuntza** bat egin behar zioten. Bernardo Atxaga

Kataraataren **ebakuntza** egitea erabaki zuen, eta ondo atera zen. Jon Muñoz

Belauneko **ebakuntza** egiteko eraman zuten ospitalera Portugaleteko presoa eta ospitalean zegoela antzeman zioten bai bihotzeko arazoa bai minbizia. Berria - Euskal Herria

Biei ala biei ere belauneko lotailu gurutzatuetako **ebakuntza** egin zieten. Berria - Kirola

Hori ez dela askotan ikusten kartzinoma ezkataduna kentzeko egiten diren **ebakuntzetan**. Hasier Etxeberria

Astelehenean egindako **ebakuntzan** balbula bat jarri zioten bihotzean, presoak duen gaitz koronarioari aurre egiteko. Berria - Euskal Herria

Pibot brasildarrari **ebakuntza** egin zioten abenduaren 23an kiste bat kentzeko. Berria - Kirola

Ebakuntza baten ondotik eta denbora guti barne urrundu zauku Pierre Fontan Salaberry Etxartekoa 69 urtetan. Herria

Lobulu frontaleko tumor baten lehen operazioa 1884an egin zen, eta sintoma psikiatriko hutsengatik egindako lobulu frontal baten lehen **ebakuntza**, berriz, 1888an. Xabier Olarra

Ebakuntza -dio txostenak- gorputzez erabateko emakumea izateko helburuz egina izan da. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ebakuntza txiki bat behar duzu. Xabier Olarra

Ebakuntza arin bat gaiztotu ostean hil zen umea. Berria - Kultura

Ebakuntza arrunta omen zen, arrisku apartekorik gabea. Karlos Linazasoro

Ebakuntza arriskutsu horrek ez duela bere arrebaren bizitza salbatuko. Iban Zaldua

Bizirik atera nintzela joan den udazkenean egin behar izan zidaten **ebakuntza** larri hartatik. Imanol Zurutuza

Osakidetzako **ebakuntza** kirurgikoen batez besteko itxaronaldia 49 egunekoa izan da aurreko hilabeteetan. Berria - Euskal Herria

Ebakuntza traumatologikoa eta kirurgia plastikoa dira atzerapen handieneko **ebakuntzak**, 60 eta 66 egun bitartean. Berria - Euskal Herria

Premiazko **ebakuntza** egin behar izan zioten atzo. Berria - Kultura

Erietxetik deitu zioten larrialdiko **ebakuntza** bat egitera joan zedin. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ebakuntza-eguna du Bennettek ostirala, eta mastektomia bat zeukan programatuta. Xabier Olarra

Goizean goiz deitu zioten gizonari, **ebakuntza** egunaren biharamunean, lehenbailehen joan zedin ospitalera, konplikazioren bat sortua zela eta. Imanol Zurutuza

Ospitaleak, **ebakuntza** salak, kartzelak, prostituzio etxeak. Josu Zabaleta

Ebakuntza-gela nikeleztatu bat eta gomazko eskularruak zituen zirujau bat nituela zain. Joseba Urteaga

Larrialdietako zerbitzuan sartu zirenean, artean bizirik zegoen Julio, baina ez zen **ebakuntza**-gelaraino iritsi. Juan Kruz Igerabide

Gero, hari batetik eta bestetik tiraka, astebete eskas lehenago **ebakuntza**-gelan bertan joan zitzaien neska gazte harena kontatu zien, hantura kontrolatu ezinik egokitu zirela eta alferrik izan zirela ahalegin guztiak. Imanol Zurutuza

Bi aukera, **ebakuntza**-mahaiaren gainean edo lurrean. Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irailaren 6an bihotz **ebakuntza** egin zioten Clintoni; Bigarren mehakezur-**ebakuntza** egin behar izan zidatean. Berria - Mundua

Galdetzen dio bular **ebakuntza** egin nahi duenari peto urdin batek figura baldartzen dion lagunak. Pako Aristi

-Sexu-**ebakuntza** egin duzu? -tartekatu zuen Anak galdera irrikatsua, Pilarrenak erantzuna jaso aurretik ere. Aitor Arana

Duela lau urte egin zuten lehen aldiz ozeanoz haraindiko telekirurgia **ebakuntza** bat. Berria - Harian

PRI alderdia finantzatzea leporatu diote, baita emaztearen estetika **ebakuntzak** enpresaren diruarekin ordaintzea ere. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaketan ebakuntza (3); **aldaketan ebakuntza egiteko** (3); **azken ebakuntza** (5); **baina ebakuntza** (7); **begietako ebakuntza** (3); **begietako ebakuntza egin** (3); **behar da ebakuntza** (3); **belauneko ebakuntza** (10); **belauneko ebakuntza egin** (4); **beste ebakuntza** (12); **beste ebakuntza bat** (10); **bi aldaketan ebakuntza** (3); **bi ebakuntza** (12); **bi ebakuntza egin** (6); **bigarren ebakuntza** (4); **bihotzeko ebakuntza** (10); **bihotzeko ebakuntza egin** (4); **da ebakuntza** (9); **dio ebakuntza** (4); **diote ebakuntza** (10); **dira ebakuntza** (4); **du ebakuntza** (4); **dute ebakuntza** (4)

ebakuntza amaitu (3); **ebakuntza arriskutsu** (3); **ebakuntza bat** (46); **ebakuntza bat egin** (21); **ebakuntza batean** (6); **ebakuntza baten** (15); **ebakuntza baten zain** (4); **ebakuntza behar** (5); **ebakuntza beharrik** (3); **ebakuntza egin** (193); **ebakuntza egin aurretik** (6); **ebakuntza egin behar** (31); **ebakuntza egin beharko** (12); **ebakuntza egin berri** (5); **ebakuntza egin diote** (12); **ebakuntza egin ditu** (3); **ebakuntza egin dizkiote** (5); **ebakuntza egin eta** (16); **ebakuntza egin ondoren** (8); **ebakuntza egin ostean** (3); **ebakuntza egin zieten** (4); **ebakuntza egin zioten** (36); **ebakuntza egin ziotenetik** (3); **ebakuntza egin zituzten** (4); **ebakuntza egin zizkioten** (6); **ebakuntza egingo** (14); **ebakuntza egingo diote** (9); **ebakuntza egitea** (15); **ebakuntza egitea erabaki** (4); **ebakuntza egiteko** (41); **ebakuntza egiteko aukera** (4); **ebakuntza egiteko beharra** (3); **ebakuntza egiteko prest** (3); **ebakuntza egiten** (9); **ebakuntza egitera** (4); **ebakuntza eta** (9); **ebakuntza ez** (3); **ebakuntza gehiago** (3); **ebakuntza gela** (4); **ebakuntza gelako** (5); **ebakuntza gelan** (20); **ebakuntza gelara** (11); **ebakuntza gelatik** (6); **ebakuntza gogorra** (3); **ebakuntza hau** (3); **ebakuntza hori** (9); **ebakuntza horrek** (4); **ebakuntza horren** (5); **ebakuntza izan** (3); **ebakuntza jasan** (3); **ebakuntza kirurgiko** (4); **ebakuntza mahaian** (3); **ebakuntza mikel** (3); **ebakuntza ondo** (7); **ebakuntza ondo joan** (3); **ebakuntza ondoko** (3); **ebakuntza osteko** (4); **ebakuntza txiki** (6); **ebakuntza txiki bat** (6)

edo ebakuntza (4); **egin diote ebakuntza** (4); **egin zidaten ebakuntza** (5); **egin zion ebakuntza** (3); **egin zioten ebakuntza** (20); **egindako ebakuntza** (3); **egingo diote ebakuntza** (4); **eta beste ebakuntza** (3); **eta ebakuntza** (32); **eta ebakuntza egin** (10); **fimosiaren ebakuntza** (3); **hainbat ebakuntza** (4); **hainbat ebakuntza egin** (3); **hiru ebakuntza** (4); **jartzeko ebakuntza** (3); **kentzeko ebakuntza** (3); **lehen ebakuntza** (6); **osakidetzan ebakuntza** (4); **osakidetzan ebakuntza egiteko** (3); **ospitalean ebakuntza** (3); **ospitalean ebakuntza egin** (3); **premiazko ebakuntza** (6); **premiazko ebakuntza egin** (4); **sendatzeko ebakuntza** (5); **sharoni beste ebakuntza** (3); **txikitzeko ebakuntza** (7); **txikitzeko ebakuntza egin** (4); **urdaila txikitzeko ebakuntza** (5); **urdaileko ebakuntza** (3); **zen ebakuntza** (4); **zenuen ebakuntza** (3); **zidaten ebakuntza** (6); **zion ebakuntza** (5); **zioten ebakuntza** (23); **zuen ebakuntza** (3); **zuten ebakuntza** (3)

ebakuntzan parte hartu (3); **ebakuntzaren ondoren** (9); **ebakuntzaren ondorioz** (3); **ebakuntzaren ostean** (5); **ebakuntzaren zain** (3); **ebakuntzarik egin** (6); **eta ebakuntzaren** (6); **eta ebakuntzetan** (3)

---

ebaluagarri *izond* ebalua daitekeena, ebaluatzeko modukoa.

Erlijioa ikasgaia derrigorrezkoa eta **ebaluagarria** izan beharko litzateke. Berria - Harian

Ikasgai horretako emaitzak ez dira selektibitateko bataz bestekoa lortzeko **ebaluagarriak** izango. Berria - Harian

Erresuma Batuan ere eman behar da, baina ikasgaia ez da **ebaluagarria**. Berria - Harian

---

ebaluaketa **1** *iz* ebaluatzea.

Informazioaren bilketarako eta lanketarako tresna egokiak dira **ebaluaketak**. Koldo Zuazo

Zeren eta horren estrukturaz **ebaluaketa** bat egin dute ministeritzako arduradunek. Menane Oxandabaratz

Molde jarraikian osasun mailako prestazioen eta zerbitzuen **ebaluaketa** egitea izanen da bere betekizuna. Berria - Euskal Herria

Ebaluaketa horren ondorioak onak baldin badira. Menane Oxandabaratz

Ebaluaketa aztertzerakoan argi ageri da ezberdintasunak daudela. Berria - Euskal Herria

Botere publikoek, ardura xedea baliatuz, arriskuen **ebaluaketa** eta behin-behineko neurriak bermatu beharko dituzte, kaltea saihesteko helburuz. Berria - Euskal Herria

Ikasleek ikastaroaren amaieran egindako **ebaluaketan** notarik bikainena aterata ere, berdin-berdin kobratuko du. Joxerra Garzia

Osagarri zentroen **ebaluaketa** da ANAES batzordeen lana. Herria

Ebaluaketarako azken irizpide bakarra, sistema osoaren soiltasuna da. Itziar Laka

Aurkitze-prozedura izan beharrean **ebaluaketazkoa** den gure helburu apalagoak, biribilkeria ustelaren arriskua deuseztatzen du goian jorratutako adibide guztietan. Itziar Laka

Perez Iglesias kexu da oraindik EAEko **Ebaluaketarako** Agentzia ez delako martxan jarri. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ebaluaketa zorrotz bezain zuzen batek eman dio lanpostu betirakoa, eta badu aski motiborik hala jarduteko. Iñigo Aranbarri

Azterketa bakarra egiten da, eta, etengabeko **ebaluaketari** ez zaio batere garrantzirik ematen. Berria - Euskal Herria

Urteko **ebaluaketa** sistema ezarri zuten plantan. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barne Mediku Egoiliarrek ospitale zerbitzuetan jasotako prestakuntzaren **ebaluaketa**-inkestaren azterketa estatistikoa landu dugu. Berria - Euskal Herria

Ebaluaketa sistema ere mantenduko da (eskas, nahiko, ongi, oso ongi eta bikain). Berria - Euskal Herria

Ikasleen **ebaluaketa** moldeak hobeki aztertzeko. Herria

Kasu honetan, teoriak gramatiken **ebaluaketa**-prozedura bat eskaintzen digula esan genezake. Itziar Laka

Neurgailuak eta **ebaluaketa** irizpideak finkatu behar dira Konfederazioaren iritziz. Berria - Euskal Herria

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garatzea eta egituratzea, euskararen presentzia bizi sozialean, partaidetzen eta **ebaluaketa** adierazleen segipena. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bertsogintzaren aurrerapausoak auto-**ebaluaketaren** bidetik heldu dira. Andoni Egaña

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arriskuen ebaluaketa (3); **ebaluaketa bat** (5); **ebaluaketa egitea** (4); **ebaluaketa prozedura** (7); **ebaluaketa prozedura bat** (4); **ebaluaketa sistema** (4); **eta ebaluaketa** (5); **gramatiken ebaluaketa** (6); **gramatiken ebaluaketa prozedura** (5)

---

ebaluatu, ebalua, ebaluatzen du *ad* zerbaiten edo norbaiten balioa zehaztu. ik **balioztatu**.

Irizpide desberdintasun nabariak daude ikerketa **ebaluatu** eta balioztatzeko orduan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Saioaren analisia egiten eta geure buruaren lana **ebaluatzen** hasi ginen. Andoni Egaña

Zientziaren Filosofia estandarrak kontzeptuen tipologia desberdinak ezartzen ditu, euren alde onak eta txarrak **ebaluatuz**. Askoren artean

Teoria arau-emaileek gure ekintzak **ebaluatzeko** irizpideak ematen dizkigute eta gertakizunen aurrean zer-nolako jokabidea hartu beharko genukeen agertu nahi dute. Askoren artean

Demagun, adibidez, gramatikak luzera bezalako ezaugarri soil baten arabera **ebaluatzen** ditugula. Itziar Laka

Lau arlo **ebaluatzen** dira: irakurmena, ezagutza matematikoa, ezagutza zientifikoa eta buruketen ebazpena. Berria - Harian

Pisa 16 urteko umeen gaitasunak neurtzeko eta **ebaluatzeko** azterketa da. Berria - Euskal Herria

Azterketaren datu guztiak ikusgai daude Irakas-Sistema **Ebaluatu** eta Ikertzeko Erakundearen web orrian. Berria - Euskal Herria

Legeak dio enpresa guztiek arriskua **ebaluatzeko** plana izango dutela. Berria - Ekonomia

Martxan diren hizkuntza neurriak **ebaluatzea**, beraien aplikazio maila neurtzeko. Herria

Teoriaren egiturei buruzko proposamen desberdinen alderatzea eta **ebaluatzea** zientziaren arazo filosofiko jakinen azterketan. Askoren artean

Gure azken helburua, aurkeztutako gramatika bat **ebaluatzeko**, eta proposatutako beste gramatikekin erkatzeko bide objektiboa eskaintzea da, ez intuiziozkoa. Itziar Laka

Espero dut askotarikoak, aberatsak eta berritzaileak izatea, eta jorratzen ditugun gaiak honakoak edo halakoak izanik ere, justiziaz **ebaluatuak** izatea. Ana Urkiza

Zoritxarrez beretako, mahai horren gogortasuna gaizki **ebaluatu** zuen. Ramuntxo Etxeberri

Gizarteak horrela kritikoki **ebaluatzen** du transformazio sozionaturala (hots, progresoa) gauzatzen duen baliabide zientifiko-teknologikoen multzoa. Berria - Gaiak

Azterketaren datu guztiak ikusgai daude Irakas-Sistema **Ebaluatu** eta Ikertzeko Erakundearen web orrian. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ebaluatu beharko (3); **ebaluatu du** (3); **ebaluatu eta** (15); **ebaluatu eta egiaztatzeko** (3); **ebaluatu eta ikertzeko** (7); **ebaluatzeko euskal** (3); **ebaluatzen dira** (4); **eta ebaluatzea** (4); **eta ebaluatzeko** (9); **irakas sistema ebaluatu** (6); **irakasleak ebaluatzeko** (3); **kalitatea ebaluatu** (3); **kalitatea ebaluatu eta** (3); **sistema ebaluatu** (6); **sistema ebaluatu eta** (6); **sistemaren kalitatea ebaluatu** (3)

---

ebaluazio *(**147** agerraldi, **13** liburu eta **64** artikulutan; ETCn **5.161** agerraldi)* **1** *iz* ebaluatzea.

Erantzukizuna, lehia, malgutasuna, **ebaluazioa**, emaitzen araberako trataera, horiexek izango dira etorkizuneko "hitz gakoak". Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ongi etorri egin daitezkeen **ebaluazioak**, nori berea emango diotenak, lastoa eta garia bereizten lagunduko dutenak, berdin unibertsitate baten barruan nola unibertsitateen artean ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ingurumen-inpaktuaren inguruko **ebaluazioak** egin beharko dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aurreko ikusmolde estandarrarekiko ekarpenei buruzko **ebaluazioa**, Kuhnen ekarpenen ikuspuntutik eginaz. Askoren artean

Horrek behartzen gaitu egungo gizartean zientziari ezagutzen zaion estatus gorenaz galdetzera, eta erantzunaren arabera, baita estatus horri darizkion eragin politikoen, sozialen eta etikoen **ebaluazioa** egitera ere. Askoren artean

Giza ekintzen **ebaluazioaz** arduratzen den filosofiaren esparrua. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ikerketa horiek **ebaluazio** laburretan oinarrituta zeuden, eta ez etengabeko behaketa eta harreman luzean. Xabier Olarra

Ebaluazio osoa egin ikasleari, ez bakarrik azterketa egunekoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Rio'92ko konpromisoei buruzko gogoeta eta **ebaluazio** berriak garapen iraunkorraren funtsezko ahalegina natura babestea zelako ideian biltzen ziren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bihotzaren **ebaluazio** tekniko bat egiten saiatuko gara orain, eta, lehen-lehenik, ponpa bat dela egingo dugu kontu. Irene Aldasoro

Garai hartarako, **ebaluazio** psikologiko eta neuropsikologiko sail bat egin zioten Gregi. Xabier Olarra

Baliabide eta trebatzaile gehiago eskatu zituzten, eta, horrez gain, planaren **ebaluazioa** jarraitua izatea. Berria - Euskal Herria

Ebaluazio zintzo eta bidezkoa zirudien. Oskar Arana

Pisa ez da **ebaluazio** curricular bat; hau da, ez da eskolan ikasitakoa bakarrik ebaluatzen. Berria - Euskal Herria

Desegokia litzateke gure jardunbidearen **ebaluazio** morala gure erabakimenetik kanpo dauden esparruetan kokatzea. Askoren artean

Ingurumenarentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduera eta substantzien aurretiazko **ebaluazio** eta kontrola, baimena, arauketa edo galarazpena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bere buru dudagarriaren **ebaluazio** segurua egiteko, besteak putakumeak kontsideratu beharra daukan demokrata jende zintzoak. Joxe Azurmendi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Dagoeneko hasi dira sortzen unibertsitateen arteko sailkapenak (egokiak diren edo ez, beste kontu bat da), unibertsitateen lanaren **ebaluazio** sistemak, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 15 urteko 3.000 ikaslek baino gehiagok egin dute Pisa **ebaluazio** azterketa. Berria - Euskal Herria

2005eko otsail eta martxoan, NOBeko **Ebaluazio** Batzordeko ordezkariek hautagai diren hiriak bisitatuko dituzte. Berria - Kirola

Udaberriro Eusko Jaurlaritzak eta Frantziako Gobernuak egiten duten **ebaluazio** bileran aztertuko litzateke 2005eko ekainetik aurrera zer egin. Berria - Ekonomia

1953. urterako, erabat galdua nuen **ebaluazio**-prozedura taxonomikoak formulatzeko itxaropena. Itziar Laka

Artearen instituzio-teoria, **ebaluazio**-proposamen berriak, instrumentalismoa edo auzi estetiko zehatzen azterketa analitikoak. Askoren artean

OCDEren Pisa **ebaluazio** txosteneko emaitzak interpretatzen ikasteko jardunaldia egin dute Bilbon. Berria - Euskal Herria

Pertzepzioaren helburua ikusmenezko munduaren **ebaluazio**-eskala bat ematea da nolabait Gibsonentzat. Josu Zabaleta

Ba al dago teorien -paradigmen- artean aurrerapen zientifikoa identifikatzeko **ebaluazio** irizpiderik? Askoren artean

Ebaluazio Agentzia berezi bat sortuko duela Jaurlaritzak, honen eginbidea izanen baita Euskal Herriko unibertsitateek egiten dituzten urratsen balioa neurtzea. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aplikatzearen ebaluazioa (3); **aplikatzearen ebaluazioa** (3); **da pisa ebaluazio** (4); **dute pisa ebaluazio** (3); **ebaluazio agentzia** (3); **ebaluazio azterketa** (4); **ebaluazio azterketan** (4); **ebaluazio azterketaren** (3); **ebaluazio eta** (5); **ebaluazio positiboa edukitzea** (4); **ebaluazio sistemak** (3); **ebaluazioa egin** (4); **ebaluazioa egin** (4); **ebaluazioa eta** (5); **ebaluazioa eta** (5); **eta ebaluazio** (5); **eta ebaluazioa** (3); **eta ebaluazioa** (3); **euskarari aplikatzearen ebaluazioa** (3); **euskarari aplikatzearen ebaluazioa** (3); **gaineko ebaluazio positiboa** (4); **horien gaineko ebaluazio** (4); **pisa ebaluazio** (14); **pisa ebaluazio azterketa** (3); **pisa ebaluazio azterketan** (3); **planaren ebaluazioa** (4); **planaren ebaluazioa** (4)

ebangelari ik **ebanjelari**.

ebangeliko ik **ebanjeliko**.

ebangelio ik **ebanjelio**.

ebangelista ik **ebanjelista**.

ebangelizatu ik **ebanjelizatu**.

ebanista *iz* zur finekin lan egiten duen zurgina.

Nire aita **ebanista** zen, sekulako altzariak egiten zituen. Berria - Kultura

Edozein **ebanistak** egin zezakeen. Unai Elorriaga

Mateo lehengusuarena, aittite Julian Europako **ebanistarik** hoberenaren istorioa osatzen ahaleginduko dena. Berria - Kultura

Suediako erregeak sekula ez duela argitu zergatik ez dagoen Nobel saririk **ebanistentzat**. Unai Elorriaga

ebanjelari *iz* Ebanjelioak idatzi zituzten idazleetako bakoitza. ik **ebanjelista**.

Literatur kritikaren ikuspuntutik begiraturik, jolas soila baino areago doan eztabaida iradokizunez betea da **ebanjelariek** Jesus ala Jesusek **ebanjelariak** sortu zituen jorratzea. Anjel Lertxundi

Sabaia irudi handiz margotua zuen, Jordaensen estilora; eskotaren angeluetan lau **ebanjelariak**, eta erdian Bibliatik hartutako irudi eta eszena batzuk ageri ziren. Josu Zabaleta

Abere aska batean ezarri zuen -dio **Ebanjelariak**-, ez baitzegoen harentzako lekurik ostatuan. Ama ospetsu eta beti Birjina Maria txit dohatsuari; Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, kerubin, ahalmen, nagusi, aginte, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei; Joan Bataiatzaile, Joan **Ebanjelari**, Pedro eta Paulo dohatsuei eta patriarka, profeta, haur errugabe, apostolu, **ebanjelari**, ikasle, martiri, aitorle eta birjina dohatsuei. Askoren artean

Kristau tradizioan Joan **ebanjelariari** egozten zaio arranoaren sinboloa. Askoren artean

Kristau familien artean, Mateo santu **ebanjelari** honen eguna data ezberdinetan ospatzen da. Pello Zabala

Azken garaietako **ebanjelari** berri honek, paradisuko ibai bat balitz bezala, Ebanjelioko ur biziak mundu osora zabaldu ditu. Askoren artean

Ebanjelariaren ahots bakartia Kristoren pasioa alemanez errezitatuz altxatzen zenean, iruditzen zitzaidan hizkuntza ezezagun batez kontatzen zuena nik urritik urtarrila arte jasan nuen proba zela. Joseba Urteaga

ebanjeliko **1** *izond* Ebanjelioarena, Ebanjelioari dagokiona.

Frantzisko eta bere lehenengo bi lagunak ageri zaizkigu, eta testu **ebanjelikoak** Jesusen jarraipenari buruzkoak dira. Askoren artean

Honetara eraman zuen bizimodu berriaren hasieran aurkitzen den aholku **ebanjelikoak**, alegia, ondasunei uko egin eta behartsuei emateak (1 Er 2,4). Askoren artean

Haurra bataiatzeak eskatzen du ebanjelioaren mezua gauzatzea, ume hori balio **ebanjelikoetan** heztea. Berria - Harian

Apaizaren su **ebanjelikoak** eta apostolatu-antsiak politikara bideratu zirela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gezurrezko utopia **ebanjelikoekin** eta aingerukeriekin geure buruak engainatzen ibili gabe. Joxe Azurmendi

Jainkoaren eta beronen Fedearen egia hutsezinek akuilaturik, karitatearen zutoihaletan dotrinaren banderak jaso zituen, penitentziaren kuarteletan Gurutzearen armak, eta Jainkoaren hitzaren tronpeta **ebanjeliko** bilakaturik, ahotsa goratzearen eta bizioei zintzur egitearen alde jo zuen. Jon Alonso

Bere erruki txit santuagatik eman diezagula berak pobretasun guztiz baliotsu, maitagarri eta **ebanjelikoa** benetan maitatu, gorde eta apalki ikasteko grazia. Askoren artean

2 *izond/iz* Ebanjelioari eta norberaren konbertsioari garrantzi berezia ematen dion sekta protestante bati dagokiona; sekta horretako kidea. ik **ebanjelista 2**.

Indartsua zen emakumeen presentzia Frantziskoren garaiko gizartean eta bizitza erlijiosoan, eta bereziki mugimendu **ebanjelikoetan**, ortodoxo nahiz heretiko. Askoren artean

Eliza instituzionala baliogabetzen zuten beste hainbat mugimendu **ebanjeliko** edo kataroak bezalako mugimendu heretikoen aurrez aurre. Askoren artean

AEBetako zentro **ebanjeliko** batetik sortuak ematen dute gazte afroamerikar horiek. Berria - Kultura

Erreformako paradigma **ebanjeliko**-protestantea. Patxi Altuna

PSOE prestatzen ari den legeak Espainiako Gobernuak Eliza Katolikoaren, Eliza **Ebanjelikoarekin** eta musulmanekin daukan akordioa betetzen duela argitu du. Berria - Harian

Gilbert Deya artzapezpiku **ebanjelikoa** estraditatzeko eskatu dio Kenyak Erresuma Batuari, haur trafikoagatik. Berria - Gaiak

ebanjelio *(**686** agerraldi, **52** liburu eta **76** artikulutan; ETCn **2.421** agerraldi; orobat **ebangelio** g.er.)* **1** *iz* Berri Ona, Jesukristoren ikaskizuna eta legea; Jesukristoren bizitza, mirariak eta ikaskizunak biltzen diren liburuetatik bakoitza.

Ebanjelioa irakurtzen zuen jakiteko zer zen zuzena. Herria

Konturatu, bizio eta bekatu guztiak gizakiaren bihotzetik sortzen direla eta ateratzen, Jaunak **Ebanjelioan** dioenez. Askoren artean

Ebanjelioa San Joanen liburutik. Oskar Arana

Ebanjelioa Markosen arabera. Juan Garzia

Markosen araberako **Ebanjelioaren** hasieran. Juan Garzia

San Joanen **ebanjeliotik** jasoa. Patxi Ezkiaga

Elizaren baitan ere, indartsua zen **Ebanjelioa** gizartean gauzatzeko modu berrien bilaketa, "pobretasun-mugimenduek" adierazten zutenez. Askoren artean

Ebanjelioa izango da Frantziskoren eta bere proiektuaren ardatz eta helburu. Askoren artean

Lehenik eta behin, Jesusen **Ebanjelioaren** ispilu argi eta lekuko jator dugu Frantzisko. Askoren artean

Eta hori ere **ebanjelioaren** egia duk. Joan Mari Irigoien

Santuak, **Ebanjelioaren** kontseilua ongi ezagutzen baitzuen, erantzun zion: [...]. Askoren artean

Gure baitan Haren irudia ikusten dugularik, **Ebanjelioko** seme gaztea bezala, gure baitara bihurturik, jaiki eta itzul gaitezen bekatuak urrundu gintuen Harengana. Imanol Unzurrunzaga

Jesu Kristo gure Jaunak eman dizkizun talentu miragarri horiek ez dituzula baliatzen **ebanjelioko** zerbitzari leialak bezala. Piarres Xarriton

Ez duela jakin bereizten kristautasuna ezartzeko aginduak eta kristautasuna bera, ez eta **ebanjelioko** aginduak eta haren aholkuak ere. Iñaki Iñurrieta

Gurutzearekiko zure atxikimenduak argi eta garbi erakusten du, zuk, azkenean, iritsi duzula **Ebanjelioko** perfekzioaren gailurra. Askoren artean

Munduko negozioak **Ebanjeliokoekin** trukatzeko. Askoren artean

Horko diskurtsoak, **ebanjelioetako** negar berbera baitirudi. Patziku Perurena

Perfekzio-bidea aurkitzea merezi izan zuen, Jainkoak isuri zion Frantziskok, anai Zesareo Liburu santuetan aditua zela ikusirik, berak hitz xumez idatziriko Erregela **Ebanjelioko** hitzez janzteko eginkizuna eman zion. Askoren artean

Ebanjelioko egiaren espirituaren bidez. Askoren artean

Ondoren, **Ebanjelioen** liburua ekarrarazi eta San Joanen **ebanjelioa** irakurtzeko eskatu zien. Askoren artean

Honi buruz hala dio **Ebanjelioak** : "Aitak bizia bere baitan daukan bezala, Semeari ere bizia bere baitan edukitzea eman dio" (Jn 5,26). Joan Mari Lekuona

1871n Buenos Aires-en lehorreratu zen gizonari Johannes Dahlman zeritzon, eta **Ebanjelioaren** Elizako pastorea zen. Juan Garzia

Ebanjelioarekiko leial. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eta zilegi bekie jartzen dieten edozein janari jatea, **Ebanjelio** santuaren arabera. Askoren artean

Frantziskok hitzez hitz bete zuen **Ebanjelio** santu osoa. Askoren artean

Ebanjelio apokrifo honen arabera, Juda izan zen Jesusen dizipulurik maiteena eta Jesusek berak, bere giza gorputzetik libratu nahirik, Judari eskatu zion traizio egin eta sal zezala. Joseba Zulaika

Une batzuetan frantziskotar **ebanjelio** -bizieraren freskotasuna eta askatasun alaia aurkituko du, Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **ebanjeliko**.

bat zetozen era berean Jainkoaren eta lagun hurkoaren maitasunean, benetako apostolu eta **ebanjelio** -gizon bezala. Askoren artean

Beharrezkoa zen **ebanjelio** -bokazioa Frantziskogan erabat betetzea. Askoren artean

Gorroto izan behar dio diruari, hau baita gure profesaren eta **ebanjelio** -perfekzioaren galbide nagusia. Askoren artean

Zu izan baitzara Ordena honetan lehen seme aukeratua, **ebanjelio** -etsenplua emateko, Jesu Kristori **ebanjelio** -pobretasunean jarraitzeko. Askoren artean

Baldo, **Ebanjelio** -bizitzara konbertitu aurretik, Lyongo laiko ezkondua zen, merkataria eta aberatsa. Askoren artean

Lege-idazkiek eta Azken gomendioek ongi adierazten digute Frantziskok **ebanjelio** -bideari buruz izan zuen argitasuna. Askoren artean

Ebanjelio -pasarteak idatzita dauden liburua hartu eta Jaunari erregutu nion bere nahia erakusteko. Berria - Kirola

4 mezan irakurtzen den Ebanjelioetako pasartea.

Jainkoaren laudorioaren ondotik, eguneko **ebanjelioa** Aita Etchehandy-k irakurtzen du. Herria

Eguneko **ebanjelioa** entzutea nahi izaten zuen beti bazkalaurrean. Askoren artean

Aste honetako **Ebanjelioan** aurkitzen da egiarik garbiena, zoriontasunaren mailarik gorenena nondik datorkigun. Joan Mari Lekuona

5 irud/hed

Arestiren poemak menditik **ebanjelio** berria predikatzera jaisten den profeta parodiatzen du. Joseba Zulaika

Marxen komunismoaren **ebanjelio** sekularrak erakarpen psikologikoa eman zion Errusiari, tsarismo biluzia egiteko gai izan ez zena. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agertu zidan ebanjelio (3); **bere ebanjelio** (3); **ebanjelio berria** (3); **ebanjelio eta** (3); **ebanjelio liburua** (3); **ebanjelio santua** (26); **ebanjelio santua bete** (3); **ebanjelio santua betetzea** (5); **ebanjelio santua betetzeko** (3); **ebanjelio santuak** (5); **ebanjelio santuaren** (20); **ebanjelio santuaren arabera** (5); **ebanjelio santuaren perfekzioa** (4); **ebanjelio santuaren perfekzioaren** (3); **ebanjelio santuen** (3); **ebanjelio santuko** (20); **ebanjelio santuko moldearen** (9); **eta ebanjelio** (19); **eta ebanjelio santua** (3); **eta ebanjelio santuaren** (5); **frantziskori ebanjelio** (3); **gainetik ebanjelio** (3); **gainetik ebanjelio santua** (3); **gure jaunaren ebanjelio** (3); **guztien gainetik ebanjelio** (3); **izan zen ebanjelio** (3); **jaunaren ebanjelio** (3); **jaunaren ebanjelio santua** (3); **zen ebanjelio** (5); **zen ebanjelio santuaren** (3); **zidan ebanjelio santuko** (3)

berak ebanjelioan (3); **bere ebanjelioa** (3); **dio ebanjelioak** (3); **ebanjelioa eskaintzeko baldintzak** (3); **ebanjelioa eta** (4); **ebanjelioa hots** (6); **ebanjelioa hots egitera** (5); **ebanjelioa irakurtzen** (4); **ebanjelioak dio** (3); **ebanjelioak dioen** (3); **ebanjelioak esaten** (3); **ebanjelioan ere** (3); **ebanjelioaren arabera** (4); **ebanjelioaren araberako** (8); **ebanjelioaren egia** (3); **ebanjelioaren entzule** (4); **ebanjelioaren perfekzioa** (6); **ebanjelioen eta** (3); **ebanjelioen liburua** (7); **eguneko ebanjelioa** (4); **eta ebanjelioa** (6); **eta ebanjelioak** (3); **eta ebanjelioan** (4); **eta ebanjelioaren** (11); **gure jaunaren ebanjelioa** (5); **jaunak ebanjelioan** (10); **jaunaren ebanjelioa** (7); **judaren ebanjelioa** (3); **judaren ebanjelioaren** (3); **kristoren ebanjelioa** (5); **lau ebanjelioak** (3); **zen ebanjelioa** (3); **zuen ebanjelioa** (5)

ebanjelioko bizimoldea (3); **ebanjelioko harribitxia** (3); **ebanjelioko harribitxia gordetzen** (3); **ebanjelioko hitz** (5); **ebanjelioko hitzak** (5); **ebanjelioko hitzez** (4); **ebanjelioko hura** (7); **ebanjelioko pasarte** (5); **ebanjelioko pasarte hura** (3); **ebanjelioko pasartea** (6); **ebanjelioko perfekzioaren** (6); **ebanjelioko perfekzioaren jarraitzaile** (3); **eta ebanjelioko** (12); **hura ebanjelioko** (3); **hura ebanjelioko harribitxia** (3); **joanen ebanjelioko** (3); **joanen ebanjelioko pasartea** (3); **kristoren ebanjelioko** (3); **san joanen ebanjelioko** (3); **zuen ebanjelioko** (3)

---

ebanjeliozale *izond* ebanjelioaren zalea dena.

Jendeak, bada, iritzi ezberdinak zituen gizon **ebanjeliozale** hauetaz: batzuek ergeltzat edo mozkortzat zeuzkaten; beste batzuek, berriz, halako hitzak ezin zitezkeela zorakerietatik sortu baieztatzen zuten. Alderantziz, benetako gizon **ebanjeliozaleen** moduan eta irabazi handiak egiteko bidean baleude bezala, biziki pozten ziren Jaunagan, tentaldi eta erasoaldiak pozbidetzat hartzeraino. Askoren artean

---

ebanjeliozkatze *iz* ebanjelizatzea.

Batean apeza eta apeztasuna, bestean munduaren **ebanjeliozkatzea** , edo katekesia, familia, baketze-barkamendua, bokazionea, fraide ta seroragoa, apezpikuen egitekoak eta beste Herria

---

ebanjelista **1** *iz* Ebanjelioak idatzi zituzten idazleetako bakoitza. ik **ebanjelari**.

San Joan **Ebanjelistaren** hitzekin hasi du Benedikto XVI.ak bere lehenengo entziklika. Berria - Gaiak

Kurutzerik ez da ageri horman loturik, baizik Jon Doni **Ebanjelistaren** itxura, ganbaran, hamaseigarren mendean harrian tindatua, Chartres hiriko katedralera joan beharra zena. Piarres Aintziart

340 orrialdeko liburu gottorra, idazleak kurioski idekitzen duena, Mattiu **ebanjelistaren** hitzekin: [...]. Herria

2 *izond/iz* Ebanjelioari eta norberaren konbertsioari garrantzi berezia ematen dion sekta protestante bati dagokiona; sekta horretako kidea. ik **ebanjeliko 2**.

Danforth eliza **ebanjelistako** apaiza da eta bertako kide diren lau milioi estatubatuarren boza eskuratzen saiatu da. Berria - Mundua

Ebanjelistak edo Jehobaren lekukoak izango ziren. Migel Angel Mintegi

Agian Paul D-ren irribarreagatik, edo agian begietan ikusi zion maitasunagatik -beti prest, zabal eta aurrez aurre, hala nola begiratzen dizuten moxalek, **ebanjelistek** eta haurrek: merezi ez duzun maitasunez-. Anton Garikano

Danforth eliza **ebanjelistako** apaiza da eta bertako kide diren lau milioi estatubatuarren boza eskuratzen saiatu da Berria - Mundua

---

ebanjelizatu, ebanjeliza, ebanjelizatzen du *ad* Ebanjelioa aldarrikatu; Ebanjelioko dotrina irakatsi.

Behin baino gehiagotan entzun dute beneditar zenbaitek nola zaldiz ibiltzen ziren hango fraideak Pampa zabalean zeuden Euskaldunen **ebanjelizatzen**. Xipri Arbelbide

Behin baino gehiagotan entzun dute beneditar zenbaitek nola zaldiz ibiltzen ziren hango fraideak Pampa zabalean zeuden Euskaldunen **ebanjelizatzen**. Xipri Arbelbide

Txoriak **ebanjelizatzen** dituen fraidea. Berria - Kultura

Hala, gaztelaniaren alde egoitea da Jainkoaren alde egoitea, mundu osoaren **ebanjelizatzeko**. Joan Mari Irigoien

---

ebanjelizatze *iz* ebanjelizazioa.

San Antoniok, egiazko anaia txikia eta Erregela zintzo betetzen zuena izanagatik, ikasteko premia sentitzen zuen, garaiko egoera berriei eta **ebanjelizatzearen** eskakizunei erantzun beharrez. Askoren artean

---

ebanjelizazio *iz* Ebanjelioa aldarrikatzea; Ebanjelioko dotrina irakastea.

Anaia santuek eginiko **ebanjelizazioa**. Askoren artean

Urriaren 12 an hasirik, 19 a arte iraunen du munduko misione asteak, orroituz igandeko eskea Hego Lurraldetako **ebanjelizaziorako** beharren estaltzeko eginen dela. Herria

---

ebano **1** *iz* zuhaitz sendo eta luzea, zur gogor eta astuna duena; delako zuhaitzaren zura, kolore-beltza, zurgintzan oso aintzat hartua.

Bazegon arte-zurezko idazmahai bat, **ebano** berdez apaindua. Anton Garikano

Inbutuaren horma guztiz leunak **ebanoarekin** nahastuko ziren, baldin eta lastertasun beldurgarriaz jiratuko ez balira. Koro Navarro

Ebanozko makulu bat eramaten zuen beti eskuan. Anjel Lertxundi

Armadura beltzez jantziriko zaldunak ahotik sua darien **ebanozko** zaldi gainetan. Juan Garzia

Margolan zurrunez apaindurik zeuden haren barneko gelak, eta **ebanozkoa** eta altzifrezkoa ziren sabaiak. Juan Garzia

Sabaietako zizel lanak, hormetako tapiz ilunak, zoruen **ebanozko** belztasunak. Koro Navarro

Bere aurpegi luze eta politak, bere begi beltzek eta **ebano**-koloreko bizar kizkurrak, tristeziak harrapatuak ziruditen. Fernando Rey

Dedangoak ere bezero zenituen; itsas herri askok zurekin egiten zituen tratuak, boliz eta **ebanoz** ordainduz. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Igogailuzainaren aurpegia **ebanozkoa** zen, bolizko inkrustazioez hornitua. Lopez de Arana

Azal zuri dirdiratsua, sudurra makur samarra, begiak **ebano** beltzezkoak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

ebaporatu, ebapora, ebaporatzen da/du *ad* likido bat bapore bihurtu, irakite tenperaturaren azpitik.

Ebaporazioari gagozkiola, esan behar da **ebaporatzen** den guztia prezipitatzen dela, nahiz-eta ez izan euri modura edo ikusteko eta sentitzeko eran: edozeinetara ere, ur-kopurua eta ur-lurrin kopurua beti berdintsuan daude. Pello Zabala

---

ebaporimetro *iz* ebaporazioa neurtzen duen tresna.

Ebaporimetroari zenbat ur jaitsi zaion apuntatu. Pello Zabala

---

ebaporizazio *iz* ebaporatzea.

Ebaporazioa edo lurrinketa prozesua ere, oxigenoarekin eta nitrogenoarekin nahastea eta kondentsazioa, eta euria, jakina, oso prozesu inportante eta garrantzi betekoak dira. Pello Zabala

Ebaporazioari gagozkiola, esan behar da ebaporatzen den guztia prezipitatzen dela, nahiz-eta ez izan euri modura edo ikusteko eta sentitzeko eran: edozeinetara ere, ur-kopurua eta ur-lurrin kopurua beti berdintsuan daude. Pello Zabala

Horri **ebaporazioa** eransten bazaio, eta hego haize bafada lehor eta iharren emana, lur azala zartatzerainoko egun erreak ere tokatu daitezke noizbehinka. Pello Zabala

Hilabete honen ezaugarri adierazgarrienak beroa, errea, lurrunketa edo **ebaporazio** prozesu ur xahutzailea, eta lehortea ditugu. Pello Zabala

---

ebaska *adlag* isilka, gordeka.

Ebaska sartu nintzen, otsoen moduan, horrelakorik esan ahal baneza. Joxan Elosegi

Jende arteko tratua azokako tratuaren pare jartzen da, hitz zurien azpitik diru beltza dabil **ebaska** gure barrengo ixilpoltsetan. Iñaki Segurola

Sukarra dudala uste dut, baliteke orain atez ate **ebaska** dabilen gripea izatea ere. Eduardo Matauko

Elkar ezagutzen ez duten jendeen arteko jestu horiek, **ebaska** bezala eginak direlarik, badukete, ez idurian, adiera sakon zerbait, senditzen den erranahi bat. Piarres Aintziart

Askal orduko, bi musu eman zizkidan **ebaska** bezala eta gelarat jo zuen. Janbattitt Dirassar

Eta ohore zuri, ñiñi gaixoari bi musu **ebaska** emanik amaizun batzuen eskuetan utzi behar duzularik egunarentzat. Herria

Musu laburra, kasik **ebaska** emana. Janbattitt Dirassar

---

ebaskeria *iz* lapurreta, harrapaketa.

Hamaika urte irago dira, krudelkaria, **ebaskeria** eta gaiztakeria gaiztakeriaren gainean, eta 1261ko Santa Barbara gauerdian mozkor gorotz eginak daude ardangelan bandolero guziak, Bidaurreko Corbaran jaun gazteluzaina buru dutela Patziku Perurena

---

ebasketa **1** *iz* lapurreta.

Iragan mende bukaeran, frantses armada diziplinarioa Eussa sartu zelarik, gizonak urrunean zeudela gerizarik gabeko eme-mundu horrek gaitzeko sarraskiak pairatu zituen: bortizkeria, bortxaketa, **ebasketa**, ohointza indartsu, erreketa, suntsiketa. Itxaro Borda

Beren artean miseriarengatik edo bakartasunarengatik ardura bazen jokotzar, **ebasketa**, zanpatze, berdin kabala edo gizon hiltze. Michel Oronoz

Azken egun hauetan Lapurdi itsasaldean **ebasketak** ugaritu dira. Berria - Euskal Herria

Bada **ebasketa** baten susmoa ere. Aingeru Epaltza

Behiala, Domingo Abaurreren azoteak probatuak zituen, **ebasketa** egiteagatik. Aingeru Epaltza

Bizkaian eta Nafarroan ere egin zituen **ebasketak** ustezko lapurrak. Berria - Kultura

Ez zuen, egia erran, ikerketa handirik eramateko baimenik erdietsi, karrikako iskanbilak, istripuak eta izenik gabeko beltzen edo txinatarren shopcenter-etako **ebasketa** urriak argitzeko salbu. Itxaro Borda

-Jabetasuna **Ebasketa** Da! -oihukatu nion irriz, kanpoko hotzera nindoala. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan)

Joakinek berehala aurkeztu zuen bere burua boluntario **ebasketa**-ahaleginean laguntzeko. Iban Zaldua

Polizaren arabera, lehergailu **ebasketa** bat ari zuten prestatzen. Herria

· Aseguratuak konpainiari bere enplegatuetako edozeinek egindako hutsegite, iruzur, diru- **ebasketa** edo lapurretaz parte emango dio. Xabier Olarra

---

ebasketatxo *iz* ebasketa txikia.

Ehun metroko lasterketan, gaizki partiturik erran nahi baita **ebasketatxo** bat eginez, jujeek baztertu dute, hobeki erran kanporatu. Herria

---

ebasko *iz* lapurreta.

Oroit gaitezen nola ibili behar izan zuten lehenbiziko sendagileek gorpuen altxapekako **ebaskoan**, beren askatasuna arriskuan jarriz horrela, gizakiaren gorputz barruan zer ote zegoen jakin nahi zutenean. Pello Salaburu

---

ebasle **1** *iz* lapurra.

Lapurreta txikiak eta handiak zigor berbera badu, argi dago **ebaslea** ahalik eta lapurreta handiena egiten saiatuko dela. Juan Martin Elexpuru

Orduan **ebasle** edo kinki batzuk, besterik gabe, lapurtzera etorri dituk hona. Joxemari Iturralde

Bi **ebaslek** tiroz josi zuten. Gotzon Garate

Gizonen tribuak aztergai dituen zientzia, hala nola lapurrak, **ebasleak**, iruzurgileak, ergelak, eroak, inozoak eta etnologoak. Xabier Olarra

Ebasle baten plantan Place Monge arte laster eginez. lasterka abiatu dira **ebasleen** ondotik, bainan alferretan hauk auto batean sarturik lekuak hustu dituzte laster. Itxaro Borda

Polizia ikerketa lanetan ari da eta **ebasleek** erreskatea eskatuko dutela uste dute. Berria - Kultura

Ez dezaket orobat uler nola ustezko grina batek justifika dezakeen hatsapen horiek traditzen dituen emakumea, diruaren grinak **ebaslea**, edo mendekuarenak hiltzailea justifika lezakeen bainoago. Jon Muñoz

Kartzelatik atera eta Otsabiden ostaler plantatu zen Xarles elizetako **ebasle** ohia. Itxaro Borda

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behin eta berriz azaltzen baitzitzaizkion lapur multzoak eta **ebasle** andana, denak ere bere perla beltza ostu nahian, Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Drogazale botika- **ebasle** bat banintz bezala ohildu ninduten. Aingeru Epaltza

Harresiko kosketan mordoka "ipuzcoano castillanoak" hilotzik, batipat ganadu **ebasleak**, hegazti harraparien jaki gozo dira. Patziku Perurena

Etorri zaigu bere piparekin, beti lodi, beti berdin, Belgikako zoko batean emazte **ebasle** bat bilatuz. Herria

Sekula emakume gazte batek izan duen bihotz- **ebasle** ospe handiena lortu zuen Barbarak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ttipi eskola-emaile, Ttipi isil-gordezale, Ttipi sekretu- **ebasle**. Aingeru Epaltza

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ondoko asteetan dinamita **ebasle** saldoak ez zuen ezer susmagarririk. antzeman. Itxaro Borda

5 (izenondo gisa)

Ugazaba, ospe txarra bereganatu nahi ez duenez, morroi **ebaslea** kalera bidaltzearekin konformatuko da. Juan Martin Elexpuru

---

ebaste *iz* lapurtzea.

Beraz, **ebaste** horiek ez ziren lapurreta. Esteban Antxustegi

Gauaz, jateko **ebaste** anitz bada, nahiz-eta ohointza garrazki zigortua den. Marzel Etxehandi

Haiengandik jakin genuen erromazaleen desmasien berri: etxeetan indarrez sartze, **ebaste**, su emate, ukaldika erabiltze, emakume bortxatze, aihotzez kolpatze... Aingeru Epaltza

Erran dezagun ere joanden astean gure herriko bizpahiru elkarteren egoitzan, hala nola Ur Bizian, ohointza batzu izan direla, ordenagailu **ebaste** eta bertze. Herria

Aranzadi arkeologia taldekoek «**ebaste** bidegabea» eta «suntsipen arkeologikoak» aipatu zituzten, epaileek babestutako bisita gorabeheratsua eta gero. Berria - Harian

Soldadu estatubatuarrek **ebasteak** egin izana ikertzen ari da Armada. Berria - Mundua

---

ebatondo **1** *iz* ebakiondoa.

Orduan alkandora handik kendu eta **ebatondoa** erakutsi nion. Edorta Jimenez

Nola Afrikako sabanetako tribuetako nerabeek, beren gizontasuna frogatzeko, lehoi ehizan bildutako **ebatondoak** erakutsi behar dituzten, [...]. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

I. eta II. Mundu Gerrak Europan utzitako lorratzetan **ebatondoz ebatondo** atzera joatearen pareko egin zitzaizkidan gure Literaturexpressoaren bidearen tarte jakin batzuk. Edorta Jimenez

---

ebatserraz *izond* erraz ebasten dena.

Aitzineko hilabeteetan arrobatu lau bankuak **ebatserrazagoak** zirena? Itxaro Borda

---

ebatsi *(444 agerraldi, 87 liburu eta 137 artikulutan; ETCn 2.449 agerraldi)*, ebats, ebasten **1** du *ad* lapurtu, harrapatu. ik **ostu**.

Israelgo Armadak soldadu gehiago hedatu ditu Gazan, eta palestinarrei lur gehiago **ebatsiz**, base militar berriak ezarri eta kokagune juduak handitu ditu. Berria - Mundua

Ez digute deus oparitu eta ez dugu deus **ebatsi**. Elena Touyarou

Tenpluan berrogeita zortzi mila kilo zilar **ebatsi** ondoren, Antiokiara joan zen berehala Antioko. Elizen arteko biblia

Behin, ezezagun batek bizikleta **ebatsi** zion. Ramuntxo Etxeberri

-Bai, giltzak, Urtxipia jaunaren bulegoan sartu ahal izateko **ebatsi** zenizkidanak. Aingeru Epaltza

Buhameek haurrak **ebasten** eta saltzen dituztela. Itxaro Borda

Orduantxe harrapatu balituzte, dokumentu ofizial baten **ebasten** ari, nehork ez zituen presondegiratuak izatetik salbatuko. Elena Touyarou

Zertarako hilotz bat **ebatsi**? Aingeru Epaltza

Harrizko oroitzapen eder hori Musoliniren kideek **ebatsia** zieten etiopiarreri. Herria

Jakin zen, dena jakiten baitzen herrian, supermerkatuan alkohol **ebasten** harrapatua izan zela behin, bietan eta anitzetan. Itxaro Borda

Baziren bertzeen ogi zatiaren **ebastera** ahalegintzen zirenak. Eneko Bidegain

Arrazoia suz egina zela ikasi zuen, Prometeok Zeusi **ebatsi** zion su hartaz egina. Iñaki Segurola

Monasterioetan indarrez **ebastea** izan zen Mendebaldeko ekonomia kapitalista modernoaren oinarrietako bat. Iñaki Mendiguren

Ez dira ahanztekoak ohoin harrapakariak ere: **ebats** eta **ebats** ari direnak jatetxe, liburutegi eta armategietan, poliza bat berriz ezarri artean. Herria

Ulertu behar dute ez ditugula **ebatsi** agiri horiek, gure lanaren ondorioz, eskubide hori lortu dugula. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

34-26, (81. m.): Jourdainek entsegua, baloia **ebatsi** ondoan. Berria - Kirola

Armairu gainean pausatua zen argazki batek **ebatsi** zion soa. Itxaro Borda

Lepoa baietz Andonik artadikoan jardun Londonen erdian, bihotza Cecilia Boltonek **ebatsia** zion arren. Koldo Izagirre

Bidaiaren bakardadea gustatzen zitzaion, gizarteari **ebatsiriko** intimitatea. Itxaro Borda

Ebasten didazu une batez hura ikusteko plazerra. Jon Muñoz

Neska haren donarioak zentzua lapurtu ziela esan ohi zuten inguruetako mutil gazteek, amodio-minetan egoteak loa **ebatsi** ziela ostatutik igarotzen zirenek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lehen, frankismo narrasean, barre txikiak ere **ebasten** zizkiguten Andoaín eta Beasaín esaten zuten zuri-beltzeko telebistako *talking head* ilun haiek. Iñigo Aranbarri

Elkarrekin harrapatuko zuten **ebatsia** izan zitzaien denbora, eta nehork ez zituen gehiago bereiziko. Elena Touyarou

Iker etortzearen beha zegoela, hirurogei minutu horiek zoritxarrari **ebatsi** zorion-uneak zirela zirudion eta bihotzaren ponpak susmatzen zituen. Itxaro Borda

Hona nire bizitzako obra lapurtu nahi izan didana, nire aurkikuntzaren gloria **ebatsi** nahi izan didana. Josu Zabaleta

Gerraren norgehiagoka beroan, eraso militarra ondo burutzea bezain garrantzitsua da arerioari hitza **ebastea**. Iñigo Aranbarri

3 (era burutua izenondo gisa)

Arma **ebatsien** ordez pika irrigarri bat neraman orain, doi-doian zorroztua. Aingeru Epaltza

Gizona, hila aspaldian, txokoz txoko ibiltzen zen, auzoen baratz eta sagardietako uzta **ebatsiak** besapean. Itxaro Borda

Edgar Allan Poe-ren gutun **ebatsiaren** ipuin hartan bezala. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baloia ebatsi (6); **baloia ebatsi ondoan** (3); **bat ebasten** (3); **bat ebatsi** (10); **dena ebatsi** (3); **dinamita ebatsi** (3); **ebasten ari** (3); **ebasten dituzte** (3); **ebasten eta** (3); **ebatsi behar** (3); **ebatsi dio** (3); **ebatsi dute** (9); **ebatsi egin** (3); **ebatsi eta** (14); **ebatsi nahi** (4); **ebatsi ondoan** (3); **ebatsi ondoren** (3); **ebatsi taldeak** (3); **ebatsi zion** (9); **ebatsi zioten** (7); **ebatsi zituen** (3); **ebatsi zituzten** (5); **ebatsi zuen** (5); **edo ebatsi** (3); **ere ebatsi** (3); **eta ebasten** (4); **eta ebats** (3); **eta ebatsi** (3); **euro ebatsi** (4); **oilaskoen ebasten** (3)

---

ebatu, ebatzen du *ad* eskuaz heldu; heldu.

Gerritik **ebatu** bere aurretik pasarazteko, laztan iheskorrak esku eta masailean, gutiziak irristatzen dituzten berbak. Sonia Gonzalez

Gizon bat galdeketa gelan dago, eta oso galdeketa gogorra ei da, gaiztoarena egiten duen polizia atxilotuarengana hurbildu baita, zarataka, eta lehenengoz bularretik eta gero belarrietatik **ebatu** du. Sonia Gonzalez

---

ebatzi *(816 agerraldi, 66 liburu eta 426 artikulutan; ETCn 13.955 agerraldi)*, ebatz, ebazten **1** du *ad* erabaki, eskuarki epaiketa edo kideko batean.

Berak **ebatzi** du Peaceful soldaduak hil egin behar duela, koldarra izateagatik tiroz hilko dutela. Mirentxu Larrañaga

Entseatzea **ebatzi** duzu. Xabier Montoia

-Ahapaldi dudarik ere gabe interesgarria - **ebatzi** zuen-. Juan Garzia

Mendearen hasieran, ondoretasuna aztertu nahi izan zuenean, drosofila delako euliaz baliatu zen Morgan karaktereen transmisioaren auzia **ebazteko**. Juan Garzia

Battistiren estradizioaz urriaren 13an **ebatziko** du Parisko Gorenak. Berria - Mundua

Kubako Kongresuak, Pearl Harborkoa izan eta egun bira, abenduaren 9an, Japoni gerra aldarrikatzea **ebatziko** du. Edorta Jimenez

Legeak **ebatziko** du izadiaren auzia. Juan Garzia

Bere emaitzek sendoturik, arrakasta itzeltzat baitzeuzkan berak, Lyssenkok **ebatzi** zuen genetika ez zela gai halako emaitzak behar bezala azaltzeko. Juan Garzia

Autoan, Otegiri bermea jartzeaz gain, Petrikorena eta Olanoren egoera aldatu eta 200.000 euroko berme bana ezartzea **ebatzi** du epaileak. Berria - Euskal Herria

Deliturik ez dutela egin **ebatzi** du Auzitegi Nazionaleko epaileak. Iñigo Aranbarri

VWko zuzendaritzak azaldu duenez, 2002ko ekainaren 20an lantegia itxi izana «zilegi» zela **ebatzi** dute epaitegiek. Berria - Ekonomia

Ebatzi beharra dago, edozein modutan bada ere, auzia bukatu beharra baitago. Andres Urrutia

Aginpidearen bidezko interpretazioak galderak eta zalantzak **ebaztea** dakar, araudi edo xedapen orokorren bidez. Andres Urrutia

Hori da legearen arduradun den gizaki epaileak **ebazten** duena; eta zigortu egiten du gizaki egilea. Jenaro Garate

PSE-EEk «egokia» deritzo EBBk Lizartzako auzian **ebatzitakoari**. Berria - Euskal Herria

2 arazo edo eragozpen baten askabidea aurkitu.

Baina aurkikuntza honek ez du gure arazoa **ebazten**. Iñaki Mendiguren

Ahalegindu, ahalegintzen ziren, bai horixe; baina, Grosrouvreri zegozkion hiru auzietatik, bakarra ere ez zuten **ebatzia**. Jon Muñoz

Bai aurkitu ere, egunaren une jakin batean **ebatziz** bere problema: izpiak oinarriaren aldearekiko zut direnean, hain zuzen. Jon Muñoz

Haren bidez jakin zen hirugarren mailako ekuazioa erradikalen bidez **ebatz** zitekeela. Jon Muñoz

Hasiera hartan, arazo filosofikoak, oro har, hizkuntza aztertuz **ebatz** zitezkeelako ustea (edo ametsa, esan genezake orain) ere bazen. Askoren artean

Gure adimena ezin da gure gidari izan inkognita hori **ebazterakoan**. Xabier Kintana

3 (matematikan)

Hipokratesek lunulen koadratura **ebaztea** lortu izanak sekulako oihartzuna izan zuen. Jon Muñoz

Galdera horri ekuazio bat **ebatziz** bakarrik erantzun zekiokeen, ekuazio horretan hiru kopuru gutxienez bazirelarik ezezagunak. Iñaki Mendiguren

Aljebran, berriz, ekuazioak **ebaztea** da kontua, bila gabiltzan zeraren izatasuna aintzat hartu gabe. Jon Muñoz

Egonarriz ari naiz nire geometriako problema **ebazten**. Josu Zabaleta

· Neurri ezberdin horietan bakoitza non gauden kokatuta ikusten jakitea da zorionaren ekuazioa **ebatzi** ahal izateko lehen pausoa. Pako Aristi

Euskal musikagintzaren aljebra arazoa **ebazteko** bidean, beste aldagai bat jaurti zuen Ruedak. Berria - Kultura

4 (era burutua izen gisa) erabakia.

Gai guztietarako legeak ematea ezina dela eta, alderdioi eskaini egiten die magistratu publikoa, halako arbitro ongitsu eta alderdigabea; horren **ebatziak** eragozten du haien arteko borroka eta onuragarriago gertatzen zaie alderdiei **ebatzi** hori auzi luzexka baino, horren ondorioak eta bukaerak aurreikustezinak baitira. Andres Urrutia

Kasurik gehienetan, testu zehatz baten aplikazioa baino gehiago, testu batzuen konbinaketa, testu horiek, **ebatzia** bera eduki beharrean, **ebatzira** bertara eramaten gaituztela. Andres Urrutia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bidez ebatz zitekeen (3); **erradikalen bidez ebatz** (5)

aierua ebatzi (3); **aieruak ebatzi** (5); **atzo ebatzi** (5); **atzo ebatzi zuenez** (4); **aurkakoa dela ebatzi** (3); **auzitegi gorenak ebatzi** (6); **auzitegiak ebatzi** (5); **auzitegiak ebatzi zuen** (5); **banatzea ebatzi** (3); **bat ebatzi** (11); **batek ebatzi** (3); **batzordeak ebatzi** (5); **batzordeak ebatzi zuen** (4); **benetan ebatzi** (4); **berak ebatzi** (3); **bidez ebatzi** (3); **daitekeela ebatzi** (3); **dela ebatzi** (30); **dela ebatzi du** (12); **dela ebatzi zuen** (9); **direla ebatzi** (8); **direla ebatzi du** (3); **direla ebatzi zuen** (4); **dituela ebatzi** (5); **duela ebatzi** (10); **duela ebatzi du** (7); **dutela ebatzi** (8); **dutela ebatzi du** (3); **dutela ebatzi zuen** (4)

ebatzi ahal (3); **ebatzi behar** (8); **ebatzi beharko** (11); **ebatzi beharko du** (8); **ebatzi beharreko** (3); **ebatzi beharrekoak** (3); **ebatzi du** (95); **ebatzi du auzitegiak** (3); **ebatzi du epaileak** (10); **ebatzi du gorenak** (3); **ebatzi duen** (3); **ebatzi duenez** (6); **ebatzi dute** (14); **ebatzi dute epaileek** (4); **ebatzi eta** (9); **ebatzi eta gero** (3); **ebatzi gabe** (10); **ebatzi nahi** (5); **ebatzi nahian** (4); **ebatzi nuen** (4); **ebatzi ondoren** (3); **ebatzi ostean** (3); **ebatzi ote** (3); **ebatzi uste** (3); **ebatzi zituen** (5); **ebatzi zuela** (3); **ebatzi zuen** (165); **ebatzi zuen atzo** (23); **ebatzi zuen auzitegi** (3); **ebatzi zuen auzitegiak** (3); **ebatzi zuen epaileak** (6); **ebatzi zuen eta** (3); **ebatzi zuenean** (3); **ebatzi zuenez** (6); **ebatzi zuten** (28); **ebatzi zuten atzo** (5)

egin ebatzi (3); **egitea ebatzi** (5); **ematea ebatzi** (3); **epaileak ebatzi** (6); **ere ebatzi** (6); **esku uztea ebatzi** (3); **eta ebatzi** (5); **ezartzea ebatzi** (5); **ezartzea ebatzi zuen** (3); **gorenak ebatzi** (10); **gorenak ebatzi zuen** (5); **indarrean jartzea ebatzi** (3); **jartzea ebatzi** (4); **kanporatzea ebatzi** (4); **kanporatzea ebatzi zuen** (3); **neurriak ebatzi** (3); **onartzea ebatzi** (3); **problemak ebatzi** (4); **uztea ebatzi** (8); **uztea ebatzi zuen** (6); **zela ebatzi** (13); **zela ebatzi zuen** (9); **zirela ebatzi** (10); **zirela ebatzi zuen** (6); **zituela ebatzi** (5); **zituela ebatzi du** (3); **zuela ebatzi** (13); **zuela ebatzi du** (4); **zuela ebatzi zuen** (7); **zutela ebatzi** (7); **zutela ebatzi zuen** (4)

dela ebatziko (3); **ebatziko du** (19); **ebatziko dute** (6); **ebatziz gero** (3); **edo ez ebatziko** (4); **ez ebatziko** (4); **ez ebatziko du** (3); **gaur ebatziko** (3); **gobernuak ebatzitako** (3)

den ebazteko (3); **ebaztea lortu** (3); **ebaztea lortuko** (3); **ebazteko beste** (3); **ebazteko gauza** (3); **ebazten du** (5); **ebazten zuen** (3); **problema ebaztea** (3); **problema ebazteko** (6)

---

ebazgabetasun *iz* ebatzi ez denaren nolakotasuna.

Metodoaren arazoa, oinarrizkoago **ebazgabetasun** baten ondorioa izan liteke ikerketako objektuan bertan: Altamira-ren nazioa -politikoa eta ezpolitikoa, historikoa eta denborabakoa- ekibokoa da, eta A. Rivero Rodríguez-ek haren kontraesan errepikatuak seinalatzen ditu. Joxe Azurmendi

---

ebazkizun *iz* ebazteko dagoen gauza.

Aldiz, eremu erabat ezezagunetako ikerkuntza -hots, sorbidean diren zientziak, badaezpadako eta zalantzati, zeinetan **ebazkizunak** hala-moduz definiturik baitaude oraindik- ez da eraikitzen ongi zehazturiko plano batzuen gainean. Juan Garzia

---

ebazle *iz* ebazten duena.

Berarentzat arrazoimenak askatasuna omen duen nahimenean ipintzen duen 'lege' objektibo bat [...] da ongi eta gaizki egitearen argigile edo **ebazle**. Jenaro Garate

Bretton Woodseko erakundeak, hartzekodunen eskaeren eta zordunen premien artean **ebazle** -eginkizuna betetzetik urrun, hartzekodunek eskaturiko ekonomia zordunen erreformaren tresna izan ziren. Koro Navarro

---

ebazlegai *iz* ebazle izatekoa dena.

Saio berri bakoitzak hutsegite mordoa zekarren, baina porrot bakoitzak ez zituen **ebazlegaiak** adoregabetzen; aitzitik, berri ontzat hartzen zuten porrota: zabalik uzten zien atea saio berriei. Jon Muñoz

---

ebazpen *(**1575** agerraldi, **34** liburu eta **731** artikulutan; ETCn **22.645** agerraldi)* **1** *iz* ebaztea; ebaztearen ondorioa.

Ministro batek irakurri zuen epaileen **ebazpena**. Juan Garzia

Epaitegien **ebazpenek** proiektua legez kanpokotzat jo arren, aurrera jarraitu du obrekin, atzera egiterik ez izateko. komeniko da umil-umil betetzea elizako epaile eta pertsonen **ebazpen** eta aginduak. Edurne Elizondo

Epaitegira eraman dugu zuena eta aste gutiren buruan emanen dute **ebazpena**. Xabier Montoia

Baina errekurritu egin genian **ebazpena**. Iban Zaldua

Alabamako Apelazio Auzitegiko hiru epaileen **ebazpenak** hauxe dio: «Konstituzioak ez du sexu bizitzaren intimitaterako eskubidea gordetzen». Berria - Mundua

Haren **ebazpenak** dio iraina bota zuenak kalteak eragin dizkiola irainduaren egitura psikologikoari. Anjel Lertxundi

Hori da **ebazpenean** aipatzen duen argudio bakarra. Berria - Euskal Herria

Hagako **ebazpena** berresten duen NBEren erabakia «historikotzat» jo du PANek. Berria - Mundua

Mahai gainean jarritako bigarren **ebazpena** Belgikak idatzi zuen. Berria - Gaiak

Aukera eskasa dugu, noski, **ebazpena** aurkitzeko oraindik ere hala-moduz formulaturik dauden auziei. Juan Garzia

Dastamenak eta usaimenak badute alderdi bat kimikariak berdindu ezin duena: bizkortasun izugarria informazioa prozesatzeko eta **ebazpena** emateko. Irene Aldasoro

Ebazpen horrek kontrako iritzi asko jaso du hainbat arrazoigatik. Berria - Gaiak

Defentsak **ebazpenaren** aurka gora jotzeko asmoa du, Olivier Metzner abokatu frantsesak azaldu duenez. Berria - Kultura

Nazioarteak NBEren **ebazpenak** betetzera behartu behar du Israel. Berria - Mundua

Kasuaren auzi-saioak heldu den maiatzaren 9a arte egitea aurreikusita dago, baina ez da espero urte bukaera arte **ebazpena** kaleratzea. Berria - Mundua

Ebazpena, egia esan, soilik Guantanamoko auzi espezifikoari dagokio. Berria - Mundua

Halabeharraren **ebazpenei** men egiten die, bere bizitza ematen die, bere esperantza, bere izu guztizkoa, baina ez zaio bururatzen haren lege labirintoz beteak edo eta haren agerpide diren esfera itzulkariak ikertzerik. Juan Garzia

1999an Espainiako Parlamentuak onartu zuen **ebazpen** bat esanez Franco gezurretan ibilia zela Gernikarekin. Pello Salaburu

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Ebazpen errazeko hilketa. Migel Angel Mintegi

Umezurtz izatea oinorde izatea da, dio zuzenbideak: batere garbi ez dagoen **ebazpen** astuna. Joxan Elosegi

Han agertuko da, orobat, zeinen **ebazpen** zuzenez lortzen duen Jaungoikoak bere epai zuzen ia guztiak gure zentzumenei eta arrazoiari ezkutatzea. Imanol Unzurrunzaga

Auzi garrantzitsu bati heltzeko, hari **ebazpen** zentzuzko bat aurkitzeko aukera izateko, material egokia behar du eskura biologoak. Juan Garzia

Arrazoimenak bere buruarekin duen gatazka kosmologikoaren **ebazpen** kritikoa. Ibon Uribarri

Idahoko Ordezkarien Ganberak eta Senatuak, duela lau urte egin zuten bezala, euskal auziari buruzko **ebazpen** politikoa onartu dute. Berria - Euskal Herria

Ebazpen judizial proportzionatu eta egokia erabaki ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Aski bekigu, oraingoz, **ebazpen** klasikoa errepikatzea: [...]. Juan Garzia

Kolko barruan, **ebazpenak** eztabaidaezinezko **ebazpena** izan behar duela, ulertzen da berriro, eta eztabaidaezinezko **ebazpen** absolutua bilatzeko bitarteko gisa bakarrik baloratzen da eztabaida. Joxe Azurmendi

Bi **ebazpenok** ez dira lotesleak, eta azken hitza PSOEko gobernuak izango du. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ondoren, **ebazpen** proposamenak eztabaidatu eta onartuko dira. Berria - Euskal Herria

Ebazpen-proposamenak ugariak izan badira ere (Kant, Mill, Keynes, etab.), ezin esan daiteke proposamen batek ere lortu duenik guztien adostasunik txikiena. Askoren artean

Ezartzen ahalegindu naizen positibotasunak ez dira ulertu behar gizabanakoen pentsamenduari kanpotik ezartzen zaizkion **ebazpen**-multzo bat bezala, ezta barrutik eta aldez aurretik bertan bizi den **ebazpen**-multzo bat bezala ere. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hark 1998ko azaroan aurkeztu zuen dibortzio-eskaera, eta hilabete geroago, dibortzio-**ebazpena** iritsi baino askoz lehenago, minbizia diagnostikatu zidaten. Oskar Arana

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Horretarako kausa-ondorioa, arazoa-**ebazpena**, kritika-erantzuna eta horrelako irizpideak erabil ditzakezu. Askoren artean

Eta zientziaren praxia arazo-**ebazpen** jarduera da. Askoren artean

6 (matematikan)

Ebazpenak eraginkortasunez nola kalkulatu galdetu ondoren -erradikalen bidezko **ebazpena**-, lehenengo lau mailak ebazteko formulak asmatu zituzten. Jon Muñoz

Eragiketazko formulak ziren, **ebazpenen** benetako zenbakizko kalkulua egiteko bidea ematen dutenak. Jon Muñoz

Ekuazioen **ebazpenak** kalkulatzea, lau eragiketak eta erro karratuak, kubikoak, etab. soilik erabilita. Jon Muñoz

Gehienetan, arazo baten aurrean nekez har daitekeela, ekuazio baten **ebazpen** posible bakarra bailitzan, nolabaiteko erabaki tekniko optimoa. Iñaki Heras

Hirugarren mailako ekuazioaren **ebazpenak** landu zituen Tartagliak. Jon Muñoz

Kosta egiten zitzaiola hirugarren mailako ekuazioak bi **ebazpen** eta apika gehiago izan zitzakeela sinestea. Jon Muñoz

"3x - 2=0"ren **ebazpena** da 2/3. Jon Muñoz

x^4 $y4=z^4$k ez du **ebazpenik** zenbaki osotan. Jon Muñoz

Zirkuluaren koadratura, kuboaren duplikazioa, angeluaren trisekzioa, eta, orain, erradikalen bidezko **ebazpena**! Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkeztutako ebazpen (9); **beste ebazpen** (10); **beste ebazpen bat** (5); **bi ebazpen** (5); **duen ebazpen** (6); **ebazpen bat** (56); **ebazpen bat onartu** (15); **ebazpen batean** (5); **ebazpen batek** (5); **ebazpen baten** (10); **ebazpen baten bidez** (5); **ebazpen bati** (7); **ebazpen berri** (6); **ebazpen berria** (6); **ebazpen hori** (15); **ebazpen horiek** (7); **ebazpen horrek** (9); **ebazpen horren** (11); **ebazpen judizialak** (14); **ebazpen proposamena** (9); **eta ebazpen** (12); **kontseiluaren ebazpen** (5); **onartutako ebazpen** (5); **segurtasun kontseiluaren ebazpen** (5); **zuen ebazpen** (11); **zuen ebazpen bat** (5)

aldeko ebazpena (14); **aldeko ebazpena onartu** (6); **aurkako ebazpena** (8); **auzitegi konstituzionalaren ebazpena** (6); **auzitegiaren ebazpena** (13); **bere ebazpena** (6); **buruzko ebazpena** (9); **da ebazpena** (8); **du ebazpena** (10); **duen ebazpena** (15); **ebazpena behin** (5); **ebazpena behin betikoa** (5); **ebazpena berretsi** (11); **ebazpena da** (11); **ebazpena eman** (10); **ebazpena eta** (11); **ebazpena ez** (14); **ebazpena ez da** (7); **ebazpena hartu** (10); **ebazpena kaleratu** (10); **ebazpena onartu** (45); **ebazpena onartu zuen** (16); **ebazpena plazaratu** (8); **emandako ebazpena** (7); **epailearen ebazpena** (8); **eta ebazpena** (15); **gaineko ebazpena** (6); **gorenaren ebazpena** (7); **hartutako ebazpena** (5); **inguruko ebazpena** (7); **kongresuaren ebazpena** (6); **kongresuko ebazpena** (5); **konstituzionalaren ebazpena** (8); **kontrako ebazpena** (8); **kontseiluaren ebazpena** (9); **nberen ebazpena** (8); **onartutako ebazpena** (27); **segurtasun kontseiluaren ebazpena** (6); **zen ebazpena** (9); **zuen ebazpena** (20)

auzitegiaren ebazpenak (5); **dio ebazpenak** (10); **du ebazpenak** (17); **ebazpenak dio** (7); **ebazpenak dioenez** (9); **ebazpenak ez** (15); **ebazpenak ez du** (8); **ebazpenaren alde** (6); **ebazpenaren arabera** (20); **ebazpenaren aurka** (10); **ebazpenaren aurkako** (8); **ebazpenaren aurkako helegitea** (6); **ebazpenaren berri** (6); **ebazpenaren kontra** (8); **ebazpenaren ondoren** (5); **ebazpenaren ondorioz** (5); **ebazpenaren zain** (10); **ebazpenik ez** (7); **eta ebazpenak** (7); **gorenaren ebazpenak** (6); **hartutako ebazpenak** (5); **hartutako ebazpenaren** (5); **konstituzionalaren ebazpenak** (7); **nberen ebazpenak** (6); **onartutako ebazpenak** (24); **onartutako ebazpenaren** (7); **onartutako ebazpenean** (6); **zuen ebazpenaren** (5)

---

ebazpengai *iz* ebazpen proposamena.

Irakeko behin-behineko gobernuak **ebazpengai** honi aldaketa batzuk egitea nahiko lukeela azpimarratu zuen, haatik, Segurtasun Kontseiluko 15 kideen aurrean egindako hitzaldian. Berria - Mundua

---

ebazpide *iz* ebazpena.

Wilkora itzultzea bizitza berreraikitzeko entsegua da; **ebazpidea**, ordea, desintegrazioa, ezereztea da. Berria - Kultura

EE 480/0 Erosketa **Ebazpidearen** arabera, gutxienez ehuneko 28 kromo oxido eduki behar zuen guztira. Juan Garzia

K.o. 1914aren aurreko ehun urteetan, Mendebaldeko gizakia gutxi kezkatzen zen guk orain aztertu behar dugun arazoaz, **ebazpide**-mota batek besteak bezain ona ematen baitzuen. Iñaki Mendiguren

Giuliari hitzaspertu haren **ebazpidea** azaldu nionean, hitzetik hortzerako epai zorrotza eman zuen hark: agurea burutik egina dago. Juan Garzia

---

ebaztear *adlag* ebazteko zorian.

Epaia aurrekari itxaropentsua izan daiteke une honetan **ebaztear** dauden beste hogei salaketa aintzat hartuta. Berria - Mundua

Lokal hauek Brooklyn eta Queensera aldatu dira nagusiki, baina oraindik udalaren kontra jarritako hainbat epaiketa **ebaztear** daude. Harkaitz Cano

Mexikon preso dauden sei euskaldunen estradizioa **ebaztear**. Berria - Euskal Herria

---

ebazteke *adlag* ebatzi gabe.

Don Ottaviok kontatu zuen nola, gau batean, Grosrouvreri gogotik edanarazi ondoren, bi problema ospetsu ebatzi berri zituela esan zion hark, aspaldiko mendeetatik inork **ebazteke** zeudenak. Jon Muñoz

Organismo konplexuei -sexu bidezko ugalketaz baliatzen direnei- dagokienez, luzaroan **ebazteke** egon da guneak eta zitoplasmak zer parte duten bakoitzak zelula-desberdintze fenomenoetan. Juan Garzia

Azken horiei dagokienez, denbora luzean **ebazteke** irauteko itxura guztiak dituen auzi baten aurrean gertaturik, hiru aukera dituzte. Juan Garzia

---

ebentual *izond* aldi batekoa.

Sanopotro bat. **Ebentuala**; gurekin hirugarren eguna zian... Atx! Pablo Sastre

---

ebi ik **euri**.

---

ebiakoitz *iz* larunbata.

Gutienez, **ebiakoitz** hau kanpoan iragaiten ahalko dute. Eneko Bidegain

Astirietako mezak hasi ziren I955. urtean eta gero beti eta gehiago hedatu, bereziki **ebiakoitzetan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kurtsoak iraganen dira **ebiakoitzetan**, goizeko 10 etatik 12 ak artio. Herria

Larunbat edo **ebiakoitz** arratsetan basahuntz bat agertzen zitzaien hango artzaineri, argi pollit eta misteriozko bat adar puntetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ebiakoitz aratseko mezan kantatu dute. Herria

Ebiakoitz gauan izan dira 210 afaltiar eta igandean 275 bazkaltiar. Herria

Helduden **ebiakoitzean** martxa abiatuko da Elizako plazatik 17 orenetan behereko plazaraino eta han eginen dira dantzak suaren inguruan. Herria

Iragan **ebiakoitzean** Iban Ezkurra, Panpi eta Gemmaren semea, bataiatua izan da. Herria

Ondoko bi **ebiakoitzetan** ere berdin. Herria

Bazko bezperan: **Ebiakoitz** Saindu gauan: 21 eta 1/2 etan meza koralarekin. Herria

Ebiakoitz 26 eko meza: Meza hori 20 orenetan emana izanen da. Herria

Aste huntan **ebiakoitz** 10 ean aratsaldeko sei orenetan Joko berrin Sorhaitz-Haroçarene/Latchere-Ithurralden kontra. Herria

Bi **ebiakoitzez** bi herritar esposatu zauzku: lehenik Christophe Dublanc Larraldekoa Katti Etcheverry Urkoitarra, hauk Hazparnen bizitzeko; gero Jean-Claude Idiart Axoritua hunen biziko lagun Isabelle Curunet Palu, hauk Axoritoko laborantxa segituko dute. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baigorrin iragan ebiakoitzean (3); **bataio iragan ebiakoitzean** (3); **den ebiakoitzean** (6); **dute iragan ebiakoitzean** (3); **ebiakoitz aratsean** (9); **ebiakoitz aratseko** (4); **ebiakoitz gauan** (5); **ebiakoitz huntan** (6); **ebiakoitzean ehortzi** (3); **ebiakoitzean ehortzi dugu** (3); **ebiakoitzean gure** (4); **ebiakoitzean gure elizan** (3); **edo ebiakoitz** (3); **ezkontza iragan ebiakoitzean** (7); **helduden ebiakoitz** (10); **helduden ebiakoitzean** (3); **iragan ebiakoitz** (4); **iragan ebiakoitzean** (31); **iragan ebiakoitzean gure** (3); **joan den ebiakoitzean** (4); **joanden ebiakoitzean** (8)

---

ebident ik **ebidente**.

---

ebidente *(orobat **ebident** g.er.) izond* begien bistakoa, nabarmena.

Lehenik Jaungoikoaren existentziaren froga **ebidentea** aurkitzen saiatuko gara. Imanol Unzurrunzaga

Oraindik inoiz gure arrazoimen hutsaren bi esakune nagusien demostrazio **ebidenteak** asmatzea itxaron daitekeela, alegia, "Jainkoa badago", "geroko bizitza badago". Ibon Uribarri

Zenbakien hartuemanen esakune **ebidenteak** sintetikoak dira, baina ez orokorrak. Ibon Uribarri

Batzuetan, ebidentziarik **ebidenteenetatik** ondorioak ateraz aurki daitezke hain **ebidenteak** ez diren egiak. Jon Muñoz

Ebidentetzat jotzen ditugu egiok: gizaki guztiak berdinak izan zirela kreatuak; eskubide besterenezin batzuez hornitu zituela euren Kreatoreak; [...]. Joxe Azurmendi

---

ebidentzia **1** *iz* begien bistako gauza.

Usteak daude, **ebidentziarik** ez. Berria - Gaiak

Gaur bertan ere, arrazoibide guztien, **ebidentzia** guztien, uneko erreakzio guztien kontra aireratu naiz, nire kideak bezala. Josu Zabaleta

Ebidentzia bat zen, begi bistakoa, gure sinestea, nerea hasteko. Piarres Aintziart

Gaixotasun baten moduan etorri da, ez ordea ziurtasun arrunt baten gisa, ez **ebidentzia** baten gisa. Monika Etxebarria

Hura lortzeko modurik hoberena **ebidentziaren** bitartekoa da, proposizioaren egiaren alde dagoen **ebidentziarena**. Askoren artean

Ilusioak amore eman behar izan zuen **ebidentziaren** aurrean. Berria - Kirola

Ebidentziaren kontra daramagun borroka etsia, hain zuzen. Josu Zabaleta

Ebidentziak egin egiten dira -hautu librez-, bakoitzak bereak. Joxe Azurmendi

Beti daude gainera **ebidentziak**, ideia bat, argumentu bat edo arrazoibide bat defendatzeko. Iñaki Heras

Apriorizko adigaietatik abiatuta, ordea, (ezagutza diskurtsiboan) inoiz ezin da ziurtasun begiesgarririk sortu, h[au] d[a], **ebidentziarik** sortu. Ibon Uribarri

Ez zegoen ETAri atentatua leporatzeko inolako **ebidentziarik**, baina Gobernuak bide hori aukeratu zuen hauteskundeetan etekinak ekarriko zizkiolakoan. Berria - Kultura

Hortik deribatzen dira gero Leo Straussek **ebidentzian** jartzen dituen beste problema batzuk. Joxe Azurmendi

Datorrela gaua, maitasuna merezi duen **ebidentziaren** bat ager dakidan! Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Prebentzioak, hitz bitan, **ebidentzia** zientifikoan oinarritutako egoera gertagarri eta neurgarri ezkorrez dihardu. Berria - Gaiak

Immunitatea: **Ebidentzia** klinikorik ez badago ere, zelula immunitateari kalte egin diezaioke, baina kaltea behin-behinekoa da. Berria - Harian

Adimen hutsaren oinarri-esakuneen frogetako **ebidentzia** gogobetegarriari buruz omen zeuden gabeziak. Ibon Uribarri

Ebidentzia bitxi batek hornizio ikusezin horien arduradun sentiarazten nau. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

ETAren aurkako eztabaida demokratiko guztiaren flakia, horregatixe, proiektu hobe baten **ebidentzia** falta da. Joxe Azurmendi

· Sentimen-**ebidentziaren** arabera. Askoren artean

Kontua benetan zera da: euren ia-**ebidentzia** euren baitatik bereiztea, planteatzen dituzten arazoak askatzea. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ebidentzia bat (4); **ebidentzia eta** (3); **ebidentzia ez** (3); **ebidentziaren aurrean** (3); **ebidentziarik ez** (3); **eta ebidentzia** (7)

---

ebili ik **ibili**.

---

ebilzale ik **ibilzale**.

---

ebitatu, ebita, ebitatzen du *ad* ekidin, saihestu.

Tentsio jaitsiera **ebitatzeko** astiro altxatu zen ohetik. Unai Elorriaga

Zeren haiek beti ordu hartan aldarte hartan ikusita ez baitzegoen **ebitatzerik** inork bere burua atxikitzea ikusitako gauza bati. Anton Garikano

Errukigabea da, ez ditu zure hitzak isilean gordeko, ez dizkizu **ebitatuko** tratu txar eta kateak. Elizen arteko biblia

Ezin izan dut **ebitatu**. Patxi Iturritegi

Ezin izan zuen **ebitatu** ateak buruan jo zezan. Pablo Sastre

Ezin da **ebitatu** besteek guri etiketak jartzea zeren eta bestela, bizitza guztian lan horretan jardungo genuke, etiketak kendu nahian. Ana Urkiza

Horixe da hain zuzen **ebitatu** behar dena, ez da ezer arrarorik erantsi behar deus ere ez dagoen tokian. Monika Etxebarria

---

ebitatzearren *adlag* ebitatzeko.

Gruak zerabilen pieza **ebitatzearren** burua makurtuz, bulgariarrekin elkartu zen. Pablo Sastre

Atzean esne marmitekin lera zeramala; tak-tak, hesia paratzen ari zirenak **ebitatzearren** pixka bat bazterrera jo, segitu zuten. Pablo Sastre

---

ebokatu, eboka, ebokatzen du *ad* gogora ekarri.

Ezpainak kristal hotzaren kontra pintatu edo, pintza bat eskuetan, galdera ikur batek bezala begiak inguratzen dizkieten bekainen marrak borobiltzen, eta tarteka, ordu batzuk lehenago gozatutako uneak **ebokatuz** -edo. Joxean Agirre

---

ebokazio *iz* ebokatzea.

Sexu-jardunak gure bizitza osoaren zati txiki-txiki bat hartu ohi du guztira, baina denbora asko eta zabala eskaini ohi diogu haren prestatzeari, imajinatzeari, estrategiari nahiz lanketari; burutu eta gero ere, luzaroan irauten digu haren **ebokazioak**, ahogozatzeak, oroiminak. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako **ebokaziorik** gabe goibelegi gertatuko lirateke zirrimarraren tintak, eta irakurleak liburua itxi beste erremediorik ez luke, sendaezineko malenkonia beltzez zauritua barren-barrenetik arima. Juan Garzia

Doinuaren **ebokazioa** kontrasterako erabil baitezake bertsolariak, hitzez kantatzen ari den diskurtsoaren antitesi gisa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arantzazuko Salbatore Mitxelenak iñular hitza erabiltzen zuen euskaldungoaren ilunabarreko azken arnasaren **ebokazioan**. Joseba Zulaika

Nago **ebokazio** indarrak irakurle gazteagoak ere hunkituko dituela.Horrelako egoera batean, populazio zibila odoletan baina bizirik erakusteak, **ebokazio** indar handia du. Janbattitt Dirassar

Musikaren **ebokazio** indarra ezabatua geratu zen testuaren protagonismoagatik. Berria - Kultura

---

ebola *iz* azido erribonukleikoa duen birusa, gizakiengan gaitz hilgarriak eragiten dituena.

Ebolaren ustezko hamabost kasu aztertzen ari da OME Sudanen. Berria - Gaiak

Sukar handia eta beherakoak eragiten ditu **ebolak**. Berria - Gaiak

Lau pertsona hil dira Sudanen (Afrika) **ebolaren** zantzuekin, eta beste hamaika ospitaleratu dituzte. Berria - Gaiak

Azken hiru hilabeteetan 17 **ebola** kasu agertu dira Sudanen, eta horietatik zazpi hil dira. Berria - Gaiak

---

ebolutibo *izond* eboluzioari dagokiona; eboluzioz gertatzen dena. ik **eboluzio 3**.

Aginduzko izaera hori ez da nahikoa gertaera **ebolutiboetan** legearen nozioa aplika ahal izateko. Isabel Arrigain

Populazioen genetikaren arabera, aldaketa **ebolutiboa** geneen frekuentzien aldaketa da. Askoren artean

Alde horretatik, linguistika **ebolutiboa** geologiarekin erka dezakegu. Isabel Arrigain

Kausa hurbilak eta azkenak: Mayrrek bi biologia-mota daudela esaten du: funtzionala eta **ebolutiboa**. Askoren artean

Dualismo kartesiarra bazterturik, [...] izpirituaren eta naturaren harmonia eta paralelotasuna proklamatzen da, hots, bion monismo organiko- **ebolutiboa**, zientziak oraindik eman ezin ziena desirari eta irudimenari emanaraziz. Joxe Azurmendi

---

eboluzino ik **eboluzio**.

---

eboluzio *(338 agerraldi, 35 liburu eta 72 artikulutan; ETCn 8.061 agerraldi; orobat **eboluzione** g.er. eta **eboluzino** g.er.)* **1** *iz* zerbaiten edo norbaiten bilakaera, egoera batetik eskuarki konplexuagoa den beste baterakoa.

Biologian ezerk ez du zentzurik **eboluzioaren** argitan ez bada. Askoren artean

Espezie baten kode genetikoaren **eboluzioaren** abiadura. Berria - Gaiak

Eboluzioa ez da diseinugile hutsa, brikolajegilea baizik, oportunista hutsa eta, orduan, **eboluzioa** optimizazio-prozesu gisa aztertzea ez da zuzena. Askoren artean

Garapenaren rola **eboluzioan**. Askoren artean

Eboluzioa, hortaz, ugalketa-prozesuan aldaketak agertzen direnean gertatzen da. Askoren artean

Darwini zor zaio **eboluzioa** bizidun guztien arteko denborazko lotura gisa ikustea. Askoren artean

Izan ere, **eboluzioaren** ondorio dira sentsuak eta burmuina. Juan Garzia

Termoerregulazioa **eboluzioaren** asmakizunik hoberenetako bat izan da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hogeiren bat urtetik hona, hautespen naturalaren guztiahaltasuna eta **eboluzioaren** jarraitutasuna auzitan jarri ditu Eldredge eta Gould-ek. Juan Garzia

Eboluzioak, horrenbestez, honelako itxura zuen: prozesu gutxi-asko lineal eta jarraitu bat, proteinen zer-nolakoa aldarazten zuten mutazioen ondoriozkoa. Juan Garzia

Eboluzioan zehar, behin baino gehiagotan sortu da begia, askotariko formatan, printzipio fisiko desberdinetan oinarriturik. Juan Garzia

Azken finean Ordena barruko **eboluzioaren** ondorio da "inspiraziotik instituziora"ko jauzia. Askoren artean

Unamunorengan **eboluzio** bat nabaritzen da hizkuntzaren garrantzia herritasunarentzat, herri gogoarentzat, geroz eta gehiago azpimarratze aldera. Joxe Azurmendi

Izan ere, dantzarien **eboluzioak** behin baino gehiagotan eteten dira beste mugimendu sorta bati hasiera emateko, eta berdin gertatzen da argi aldaketa bat-batekoekin. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gorputza, izan ere, **eboluzio** zehatz eta doi baten ondorioa da. Luis Elberdin

Historia zientifikoaren interesaren alde Unamuno-k 1889an ematen duen arrazoi bat gutxienez gogoangarria da (haren **eboluzio** politikoari jaramon eginez): [...]. Joxe Azurmendi

Bistan dago nolako aldakuntzak ekarri dituen horrek **eboluzio** biokimikoari heltzeko moduan. Juan Garzia

Eboluzio kimikoa ez da bigarren maila batean baino oinarritzen mutazioetan. askotan garapen-prozesuak berak murriztapenak jarriko dizkio **eboluzio** posibleari. Juan Garzia

Fonetikak erakusten zizkigun **eboluzio** luze eta zehatzak ez nituen aise segitzen, nahiago nituen sintaxiaren konplikazio nabartuak. Piarres Aintziart

Norabide aldaketa bati buruz ari gara edo obra baten **eboluzio** erregularraz? Berria - Kultura

Arraza edo herri arimari gagozkiola behinik behin, aldebakartasun hauek azentuetan problemarik gabe esplikatzen dira Ortega-ren estiloarekin [...], ez dute adierazten zinezko **eboluzio** bat sakonean suposatzeko arrazoirik aski. Joxe Azurmendi

3 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa) ik **ebolutibo**.

Unibertso guztia eta haren baitako objektuak, bizidun zein bizigabe, **eboluzio**-prozesu batzuen emaitzatzat jotzen dira. Juan Garzia

Sinkronia eta diakronia terminoek, lehenak hizkuntza egoera bat eta bigarrenak **eboluzio** fase bat adierazi dute. Isabel Arrigain

Primate talde bat gara, eta gu gatozen **eboluzio** lerrotik giboiak duela 25 milioi urte banandu ziren. Luis Elberdin

Birusen **eboluzio** sistema oso berezia da. Berria - Gaiak

Bere barruko legeak eta **eboluzio** mugak dituen ekoizpen eraren ideia. Xabier Arregi

Tasun-aukera zabal-zabala ageri dute gizakiek, eta, beraz, **eboluzio**-gaitasun eskerga, askotariko hautespenetarako baliagarri. Juan Garzia

Eboluzio-brikolaje horrixe esker da posible elementu erregulatzaileak oso garapen desberdineko hainbat sistematan konbinatzea. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa)

Lurreko bizi-**eboluzioaren** iragan historian. Iñaki Mendiguren

Eragin handiko bitartekarien artean, Charles B. Davenport amerikar genetista, giza **eboluzioa** ikertzeko Cold Spring Harbor-eko laborategia sortu zuena. Juan Garzia

Formalizatze estadioen gainean eta hizkuntza **eboluzioaren** etapen gainean. Xabier Arregi

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Ni, gaiztakeriarik gabeko kimika-lizenziatu koxkor bat, gaiztakeriarik gabeko txakur ospetsu baten **eboluzio**-inboluzioa berbizitzen ari nintzela. Juan Garzia

6 higidura-bira.

Izan ere, dantzarien **eboluzioak** behin baino gehiagotan eteten dira beste mugimendu sorta bati hasiera emateko, eta berdin gertatzen da argi aldaketa bat-batekoekin. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten eboluzio (3); **beren eboluzioan** (3); **da eboluzioa** (4); **darwinen eboluzioaren** (3); **eboluzio bat** (4); **eboluzioa eta** (4); **eboluzioa ikusteko** (3); **eboluzioan zehar** (19); **eboluzioaren eragiletzat** (3); **eboluzioaren historian** (4); **eboluzioaren inguruan** (3); **eboluzioaren teoria** (10); **eboluzioaren teoriak** (4); **eboluzioaren teoriarekin** (3); **eboluzioaren teoriaren** (4); **eboluzioari buruzko** (4); **eta eboluzio** (3); **eta eboluzioa** (3); **eta eboluzioaren** (6)

---

eboluzionatu, eboluziona, eboluzionatzen **1** du *ad* eboluzioa izan.

Gure eskuek ere **eboluzionatu** dute; askoz ere finagoak, leunagoak eta laztantzeko trebeagoak dira. Luis Elberdin

Balioek denboran barrena **eboluzionatu** egiten dute. Joxe Azurmendi

Burke jaunak bere gisa **eboluzionatu** zuen, bakar-bakarrik, erromantizismo moduko batera. Juan Garzia

Unamuno **eboluzionatuz** joan da -Unamuno-ren moduko eboluzioan: hots, laster iritsi da, ez iritziak aldatzera bakarrik, baizik interesen arabera kontzeptuak berak nahierara erabiltzera. Joxe Azurmendi

Zientzialariek uste dutenez, *Guanlong wucaii* animaliarengandik **eboluzionatu** zuten gero gainerako tiranosauroek. Berria - Gaiak

Lurra borobila dela edo espezieek **eboluzionatzen** dutela baieztatzea ez da enuntziatu bera Copernicoren aurretik eta ondoren, Darwinen aurretik eta ondoren. Xabier Arregi

Eboluzionatu ala hil. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo gisa)

Ugaztun eme **eboluzionatuagoek** -martsupialioek, lehenengo, eta plazentalioek, geroago- bereizi zituzten bi funtzio horiek hodi banatan, eta, horretarako, bagina garatu zuten. Luis Elberdin

Laboratorio bat antolatua zuen etxarte zoko batean, karrika-zulo mehar bihurri batean, zeina, Crocettaren plazatik abiaturik, ugaztun baten egitura **eboluzionatuan** tartekaturiko halako organu eboluzio eskasez baldar baten gisa nabarmentzen baita Turingo hiriaren geometria tematian. Juan Garzia

---

eboluzione ik **eboluzio**.

---

eboluzionismo *iz* eboluzioaren teoria biologikoa eta doktrina antropologiko edo soziologikoa.

Aurrerapena eta giza historia kulturala lotzen dituen doktrina da **eboluzionismoa**. Askoren artean

Kulturen historian eta antropologian ikertzaileek beti **eboluzionismoa** dute buruan. Askoren artean

Teoria konparatibistetan (**eboluzionismo** sozialean bezala), herrien arteko ezberdintasuna aztertzen da erlazio-printzipio orokor bat dela medio. Askoren artean

Jakinaren gainean **eboluzionismoak** zientziaren autoritate ideologikoa bultzatu du, eta **eboluzionismo** bera autoritate horren ikur bihurtu da frankotan. Askoren artean

Eboluzionismoak diziplina biologikoetan ezarri zuen zientifikotasun berriak ez zuen aldatu Cuvieren garaian definitua izan zen positibotasun biologikoa. Xabier Arregi

---

eboluzionista **1** *izond* eboluzionismoarena, eboluzionismoari dagokiona.

XVIII. mendean ideia **eboluzionista** espezieen arteko ahaidego baten bidez formulatzen zen, hasieratik ezarritako continuum bat eratzen zuena. Xabier Arregi

Hemen planteatzen da *rationes causales* edo *rationes seminales* izeneko teoria famatua; bertan aditu batzuek teoria **eboluzionistaren** zirriborro modukoa barrundatzen dute, baina Agustinen arreta teologiari buruzkoa zen. Imanol Unzurrunzaga

Ezingo ote litzateke batasun modura eratu Buffonengandik Darwinenganaino arazo **eboluzionista** osatu duen guztia? Xabier Arregi

Arkeologia saiatzen da erakusten nola baieztapen biek, fixistak eta **"eboluzionistak"**, baduten bateratzen dituen leku bat espezieen eta generoen deskribapen jakin batean. Xabier Arregi

Biologo **eboluzionistak**, aldiz, beste honako hau uste izango du, alegia, erantzunak zehaztu egin beharko duela zergatik belarrak (edo belarraren arbasoek) argia bilatzeko gaitasuna lortu edo moldatu duen. Askoren artean

Zinemaren historiaren ikusmolde **eboluzionista** baten giltzarri. Josu Zabaleta

2 (izen gisa)

Etnografiaren eta antropologiaren hastapenetan, XIX. mendean, batez ere Amerikan, **eboluzionistak** hasi ziren beren ideiak nabaritasun enpirikoan funtsatzen. Askoren artean

---

edabe *(**254** agerraldi, **50** liburu eta **10** artikulutan; ETCn **815** agerraldi)* **1** *iz* belarrez-edo eginiko edaria, eskuarki indar magikoa duena. ik **egoskin**.

Botikara joan zen **edabeak** egiteko osagaiez hornitzeko. Iñaki Mendiguren

-Zein sorgini ikasi diok hik **edabeak** prestatzen? Edorta Jimenez

Hermes Argifontek landare bat erakutsi zidan **edabea** egiteko: sustraia beltza zuen, eta lorea esnearen antzekoa. Juan Kruz Igerabide

Drogagilearen **edabearen** eraginez, emaztea gau hartan bertan utzi zuen haurdun. Patxi Zubizarreta

Gizon seinalatu eta berezi bat, tribuko medikua eta aztia zirudiena eta eriari belarrak eta **edabeak** emaiten zizkiona. Joan Mari Irigoien

Sinesten dute mihuraz egindako **edabe** bati esker animalia antzuek umeak egingo dituztela. Xabier Kintana

Edabe honek egosten egon behar du, edan ahal izateko. Iñaki Mendiguren

Edabe bat eginaraziko dut, Norris andrea berpiztuko duena. Iñaki Mendiguren

Betidanik emakumearen ugalkortasuna kontrolpean izateko **edabeak** edota landareak erabili izan dira. Berria - Euskal Herria

Haren *Susper-up* **edabeak** berehalako eragina zuen. Iñaki Mendiguren

Etorri hona handituak jaisteko **edabea** hartzera. Iñaki Mendiguren

Askotan erabili dituzu armiarmak **edabeetan**. Iñaki Mendiguren

Hilezkor bihurtuko zaituen **edabe** bat lortu arte, zure indarra eta ahalmen osoa itzuliko dizkizun **edabea** edan arte... Iñaki Mendiguren

Luzaroko Bizitzaren **Edabea**. Xabier Aranburu

Marseillan kafe denda bat jarri baitzuten urte batzuk lehenago -1661. urtean-, Egiptotik ekarritako hainbat kafe-zaku saltzeko, eta harrera ezin hobea izan zuen ale haiekin egiten zen **edabe** beltzak. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eta jakin ezazu, Potter, anbulu zuriak eta asentsio-belarrak **edabe** loarazle oso ahaltsua egiten dutela. **Edabe** Magikoak, Arsenius Jigger. Iñaki Mendiguren

Edabe otso-hiltzailea aurkitu aurretik, ordea, benetako munstro bihurtzen nintzen hilean behin. Iñaki Mendiguren

Edabe likatsu eta azukrez bete horren hogei bat poto erosi zituen. Oskar Arana

Gero halako **edabe** bat ematen zidan ahora, tartetxo baten ostean beti-beti loa eragiten zidana. Edorta Jimenez

Zaldarrak sendatzeko **edabe** sinple bat egiten hasi ziren. Iñaki Mendiguren

Mandragorazko **edabe** suspergarria. Iñaki Mendiguren

Lo eragiteko **edabeaz** bete ditut hauek. Iñaki Mendiguren

Ikazkinak **edabe** plazebo bat eman zion erreginari eta sendatu egin zen. Martin Anso

Negarra irentsi egiten genuen, **edabe** mingots bat bezala. Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa)

Mahaiaren atzeko gizonari Hagridek oinarrizko **edabe**-osagaiak eskatzen zizkion bitartean, Harryk adarbakoitzen adar zilarreztatuak aztertzen zituen. Iñaki Mendiguren

Sorginkeriari buruzko liburu-pilak zabuka, lumak eta pergamino-erroiluak, **edabe**-botilak, ilargiaren esferak. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zinez da loarazlea zori oneko belar-**edabea**, logura ezti bat baitakar gorputzeko ataletara. Edorta Jimenez

Ordu batzuk barru, mandragora-**edabea** prest izango da eta harri bihurturiko guztiak oneratu egingo dira berriro. Iñaki Mendiguren

Snapek, berriz, Maitasun **edabea** eskatzen zion lehenengoa han bertan pozoitzeko asmoa zuela ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Gaztetan egin zuen amodio-**edabeaz** ari zitzaien hitz egiten Hermioneri eta Ginnyri. Iñaki Mendiguren

Nola ibiltzen ahal haiz deabru-**edabe** honi zurrupaka? Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere edabe (3); **duen edabea** (4); **edabe bat** (13); **edabea hartu** (6); **edabeak prestatzen** (4); **edabearen hartzeko** (3); **edabeetako eskola** (4); **edabeetako eskolak** (4); **edabeetako eskolan** (4); **edabeetako maisua** (3); **edaberik ahaltsuenak** (4); **eta edabe** (3); **eta edabeak** (3); **halako edabe** (3); **zukuasko edabea** (10)

---

edabezale *izond* edabeen zalea dena.

Zirze **edabezalearen** jauregira iristear nengoela, Hermes irten zitzaidan bidera, urrezko makilatxoarekin, nerabe baten itxuraz, bizar jaioberria eta gaztetasunaren distira zituela. Juan Kruz Igerabide

---

edade *(968 agerraldi, 27 liburu eta 23 artikulutan; ETCn 653 agerraldi)* **1** *iz* adina.

Gaztea bainintzen, **edadeak** orduan niretzat heriotza besterik ez zuen esan nahi. Matías Múgica

Memoria galtzen ari garela, **edadeak** ez duela barkatzen. Ramon Saizarbitoria

Zuek mukitsuok, hau egiteko **edaderik** ez daukazue, ziur gidabaimenik ere ez duzuela. Harkaitz Cano

Nik ez dut uste oraingoz nire seme-alabak **edadean** daudenik horretarako. Berria - Harian

Edadean pixka bat aurrera doanak oso zail ikusten du. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Edade egokia, esaten nian, heure buruz pentsatzen hasteko. Txillardegi

Bazen **edade** ertaineko mulata bat, gizentxoa, bekokian ebakiondo bat zuena eta Willemi begirik kentzen ez ziona. Juan Garzia

Atzelarien batez besteko **edadea** 30 urtekoa zela. Berria - Kirola

3 ***edadeko*** *izlag* adinekoa.

Luze gabe jakinarazi zidaten Monika **edadeko** gizon batekin ikusi zutela. Joxean Agirre

Edadeko emakume bat, gozoa eta atsegina, arduratuko da sukaldeaz, etxeko lanez. Eskarne Mujika

Edadekoa esatean ni baino zaharragoa zela esan nahiko zuten. Joxean Agirre

Kuban, akaso, bestelakoa izango da egoera, baina gurean **edadekoak** izan ohi dira bainuetxeetako bezeroak edo arazo jakin batzuk dituen jendea. Berria - Gaiak

Txertoen kanpaina mesedegarria dela ematen du, helburu nagusia **edadekoak** baititu, eta, zorionez, gripeak ez du gogor jo 45 urtetik gorakoen artean. Berria - Euskal Herria

Eskarmentu handia da **edadekoen** koroa. Elizen arteko biblia

Haurrek, **edadekoek** eta bihotzeko arazoak dituztenek bero kolpeak jasateko arrisku handiagoa dute. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edadeko emakume (4); **edadeko gizon** (3); **eta edadeko** (3)

---

edadetu, edade(tu), edadetzen **1** da/du *ad* adindu, adinean sartu.

Nagusitu, **edadetu** egin da. Berria - Kirola

2 (era burutua izenondo gisa)

Bikote **edadetuak**, bata bestearen ondoan zurrun eta goibel eserita, ez du asko saltzen. Oskar Arana

Denok biratu genituen buruak, erakusleihoaren ondoko mahai batean bakarrik eserita eta, udara betean geunden arren, neguko jaka lodi bat zeraman gizon **edadetu**

batengana. Ramon Saizarbitoria

Hurrengo eszenan mahai luze bat agertu zen; mahaian burezur ugari ilaran; burezurren ondoan, zientzialari **edadetuago** bat. Unai Elorriaga

Emakume **edadetua** zen, **edadetu** estandarra, eta lore urdinak zituen soinekoan. Unai Elorriaga

Harrera familiek 78 **edadetu** eta ezindu hartu dituzte Gipuzkoan. Berria - Euskal Herria

Beherakoa izatean, kontu handiz ibili behar dira umeak eta **edadetuak**, deshidratazioa edukitzeko arrisku handiagoa baitute. Berria - Harian

Zein ongi datorkien jakinduria **edadetuei** eta gogoeta eta aholkua pertsona ohoretsuei! Elizen arteko biblia

Kirola egiten duten **edadetu** guztiek bezala, abailduraren marka darama aurpegian. Joxean Agirre

Tailer literario bat sortu zuten **edadetuekin** lan egin eta haien memoriak biltzeko. Berria - Kultura

Bilera osoko **edadetuena** zen, 79 urterekin, eta esperientziaren autoritatea aldarrikatzea erabaki zuen. Fernando Morillo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duten edadetuen (4); **edadetu asko** (3); **edadetu bat** (5); **edadetu baten** (3); **edadetu eta** (5); **edadetuak dira** (4); **edadetuak eta** (3); **edadetuak ziren** (3); **emakume edadetu** (3); **ere edadetua** (3); **eta edadetuak** (8); **gizon edadetu** (6)

---

edadetze *iz* adinean sartzea.

Edadetzea da bereizkuntza horren ikasgarri bakarra, baina behar den edadea etortzen denean, ahulegi gaude oinazeari muzin egin eta poza hartu eta gozatzeko. Matías Múgica

---

edaki *iz adkor* edaria.

Gaueko jaki-**edak** i-errekiek eraginda, aipatutako begitazio miragarria izan zuen eta bizipen haren ondorioz argia ikusi eta bizitzan bestelako jokabidea hartu behar zuela ohartu zen. Jon Arretxe

---

edalari *iz* edalea.

Ez zen **edalaria**, baina kantzerrak baino gehiago jaten zuen. Koldo Izagirre

Jazinto ez zela **edalaria** esan digute, eta hala baieztatzen du Txapastaren anekdotak: beroni ematen zion eguneroko bere ardo errazioa Cadizko kontzentrazio eremuan. Koldo Izagirre

---

edale *(85 agerraldi, 36 liburu eta 7 artikulutan; ETCn 350 agerraldi)* **1** *izond/iz* edaten duena; eskuarki, edari biziak neurritik gora edaten dituena.

Nun ez den emazte **edalea**. Herria

Barrako neska hasi, arropa-modelo jarraitu eta stripper amaitu zuen, eta bitartean, tabernako konbertsazio-emaile, **edaleen** adiskide eta bezeroen ohekide izateaz gain, seme-alaba pare bat bildu zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tropikoan bizi denak, bere antzekoekin, gizon zuriekin biltzen denean, bere portaera ongi zainduko dik, **edaleek** edaten ez dutenen artean bezala. Xabier Olarra

Harrotasunez, bozkarioz eta konfiantzaz gainezka zegoen, hala nola lasterketan menderaezina den zalduna edo bestondorik ez duen **edalea**. Patxi Zubizarreta

Etxekoen esanetik, Rufino apenas zan **edalea**, nahiz eta anisa eta edari gozoak maite zituan. Xabier Amuriza

Esperientziaz zekien alferrik zela **edale** bati ez edateko esatea. Anton Garikano

Jale onak eta, nola ez, **edale** onak. Herria

Barru-barruan gizon harraparia zen, alaia eta bizia, **edale** ona, adiskide zintzoa, eta arimaren barrenean inori tiro egiteko edo herria osorik erretzeko bezain odol-beroa. Koro Navarro

Edale handia zen Joseph Roth. Anjel Lertxundi

Kazetari burua zen Farr jauna, takigrafo trebea, erretzaile amorratua, **edale** garratza. Koro Navarro

Edale amorratua, **edale** konpultsiboa, **edale** solidarioa, **edale** errukiorra, **edale** zintzoa. Anjel Lertxundi

Beste gizona, berriz, **edalea** zen, **edale** amorratua. Matías Mujika

Zahartxoak hil egin ziren eta hurrengoek ez zuten mozkorturik etxeratzeko baimenik, baina atzetik bezero berriak etorri ziren, noizbehinkako **edaleak**, ez hain alaiak, azkarragoak eta ordaintzen zutenetakoak. Joseba Urteaga

2 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa)

Eta **edale** jendea beti aiher izaten den amilbide baratz horietako batera etsirik -edaten ez dutenek ez dute inoiz ulertuko!- Andreas berriz Sena bazterrera joan zen, zubipe batera. Matías Mujika

3 (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa)

Partida bukatzen zuten bitartean, xanpaina-**edaleekin** eseri ginen Karmen eta biok gela handian. Inazio Mujika Iraola

Emakume ur-**edale** bat ondoezik jarri zen, etxean onartu zuten, sendatu, eta ordutik ez zuen kopeta apaldu. Anton Garikano

Edonork pentsa zezakeen ni mamu bat nintzela, Hannaren nireganako begiradari erreparatuz gero, Erromako berri kontatzen ari nintzaion bitartean; bidutzi bat, mustur-luze eta erpeduna, munstro te-**edale** bat. Joxe Austin Arrieta

Zer jan eta edaten dute, bada, milikari horiek, ardoa zer den ere ez baitakite, vitamina-irensle, te hotz **edale** eta kotoi-murtxikatzaile horiek, ogia zer den ere ez baitakite. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edale amorratua (3); **edale bat** (3); **edale santuaren kondaira** (4)

---

edalontzi **1** *iz* ontzi txikia, zilindro itxurakoa eta eskuarki beirazkoa, edateko erabiltzen dena; ontzi horren edukia.

Edalontzi, pitxer eta suilen garbiketa. Elizen arteko biblia

Han dator moro bat ere taldera, ur saltzaile, bere barrika eta **edalontziekin**. Patziku Perurena

Edalontzien eta kopen kristalak din-din egiten zuen, ahotsak murmur berdin eta bizi batean nahaspilatzen ziren. Jose Morales

Ate ondoko armairu tipia ireki, botila bat eta bi **edalontzi** atera, mahai gainean ezarri eta bere aulkira itzuli da. Berria - Kultura

Yolo Ferminekin ari da, **edalontzi** batzuk jaso eta mahaiak txukuntzen dituen bitartean. Pako Aristi

Kirxak **edalontzi** bat ur eman zion. Patxi Zubizarreta

Taberna batean zegoen, hain juxtu, **edalontzi** bat garagardo epel aurrean zuela. Monika Etxebarria

Edalontzi bat bete ardo edan eta karrikara atera zen. Felipe Juaristi

-Shagratek berak **edalontzi** bete ur eskainiko balit, bostekoa estutuko nioke -esan zuen Samek. Agustin Otsoa

Imanolek **edalontzi** bat ginebraz bete eta bere aita gogoratu du berriro. Joseba Sarrionandia

Edalontzia ezpainetan nuela biratu nintzen. Aingeru Epaltza

Gelditzen zitzaien ardoa, botila erdi bat edo, hustu dute **edalontzietara** . Pako Aristi

Edalontzira ur beroa isuri, kutxa ireki, eta eskuila eta xaboia atera zituen handik. Jose Morales

Topa egin eta **edalontzia** hustu nuen. Joxemari Iturralde

Listuaren bidez kutsatzen da, **edalontzi** beretik edanda, gertu hitz eginda... Berria - Kirola

Orain herri horrek herri palestinarra **edalontzi** beretik edatera bortxatu nahi du. Berria - Mundua

Talapasta egin wiskyari **edalontzian** eta jo du tragoxka bat, irribarrez burua gorantz-beherantz mugituz. Pako Aristi

Atea zabalik egongo da eta emakume bat barran **edalontziak** garbitzen. Joseba Sarrionandia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hantxe egoten ziren, **edalontzi** luzea eskuan, euren aldaka ortopedikoei apurtxo bat eraginez. Jon Arretxe

Edalontzi handitik edan zuen, gogoeta iduri. Aingeru Epaltza

Ardo zuria atera zuen Mirandek, bi **edalontzi** ttikitan. Harkaitz Cano

Zerbeza-hondar hau hiltzen ari da **edalontzi** zilindrikoaren hondoan. Jon Alonso

Garagardoarentzako **edalontzi** zabalekin. Bernardo Atxaga

Edalontzi hutsari begira geratu zen, geldi, hipnotizaturik. Unai Iturriaga

Komun-zuloko taparen gainean kristalezko hiru **edalontzi** zeuden prest. Iñaki Mendiguren

Eskuan urrezko **edalontzi** bat zuen bere prostituzio zikinaren fruitu higuingarriz betea. Elizen arteko biblia

Andre batzuk plastikozko **edalontzi** , kartoizko platera eta paperezko dafailen biltzen ari ziren. Aurelia Arkotxa

Edalontzi erdi-beteekin topa egin genuenean, Ivyk, zutik, bidaia ona opatu zidan eta, batez ere, bizitza zoriontsua. Joxe Austin Arrieta

Edalontzi erdizka hustuarekin batean. Aingeru Epaltza

Mahai baten inguruan zahar talde bat tea edaten ari da beira landuzko **edalontzietan** . Sonia Gonzalez

3 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa)

Juan Jose Urtiaga Inchaurraga, **edalontzi** ipurdi lako betaurrekoak zituena, notetan klaseko lehenengokoa beti. Joseba Sarrionandia

Boten azpian **edalontzi** puxken kraxkadak sentitzen dituzte. Jokin Muñoz

Edalontzi hondarrean geratzen ziren jela apurrei eragiten nien bitartean, Monikak lehen bezain maitagarria izaten jarraitzen zuela esan nion neure buruari. Joxean Agirre

4 (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa)

Mentxuren esker ona jaso zuen kafe-kikara eta gaseosa-**edalontzia** mahairatu zizkien gizonak. Josu Landa

Lucy sukaldera joan zen ur **edalontzi** baten bila. Joxemari Iturralde

Gin-tonic **edalontzia** eta platertxo bat utzi zizkidan mahai gainean. Joxemari Iturralde

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Eguartean ehun plater-**edalontzi** atondu eta hogei minutuko tximista-bazkariak ematen dituztenak. Edorta Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina edalontzia (3); **bat edalontzi** (3); **bere edalontzia** (8); **bete zuen edalontzia** (4); **betetako edalontzi** (4); **bi edalontzi** (7); **bien edalontziak** (3); **du edalontzia** (3); **duen edalontzia** (3); **edalontzi bat** (36); **edalontzi bat hartu** (3); **edalontzi batean** (3); **edalontzi baten** (4); **edalontzi batzuk** (3); **edalontzi eta** (5); **edalontzi hutsa** (3); **edalontzi txiki** (4); **edalontzia ahora** (3); **edalontzia ardoz** (3); **edalontzia bete** (3); **edalontzia erdi** (3); **edalontzia eskuan** (7); **edalontzia eta** (7); **edalontzia hartu** (8); **edalontzia hustu** (3); **edalontzia jaso** (3); **edalontzia jiraraziz** (3); **edalontzia mahai** (4); **edalontzia mahai gainean** (4); **edalontziak bete** (5); **edalontziak bete zituen** (3); **edalontziak eta** (5); **edalontziak garbitzeari** (3); **edalontziak garbitzen** (4); **edalontzian geratzen** (3); **eta bi edalontzi** (4); **eta edalontzi** (5); **eta edalontzia** (10); **eta edalontziak** (7); **kristalezko edalontzi** (5); **kristalezko edalontzi bat** (4); **nire edalontzia** (3); **plastikozko edalontzi** (3); **zion bere edalontziari** (3); **zion edalontzia** (3); **zuen edalontzia** (9); **zuen edalontzian** (3)

---

edalontziratu, edalontzira, edalontziratzen du *ad* edalontzira bota.

Nahikoa zen, beraz, txorrotada soil bat **edalontziratzea** , isurtze behar horiek patxadan egiten bazituen ere. Josu Landa

---

edan[1] *(**5.039** agerraldi, **264** liburu eta **657** artikulutan; ETCn **27.941** agerraldi)* , edaten **1** du *ad* isurkari bat irentsi; edari biziak hartu.

Zahatoa urez bete eta **edaten** eman zion mutikoari. Elizen arteko biblia

Hiru egun ez jaten, ez **edaten** , eta ezer sentitzen ez zuela eman ondoren, denek hiltzat jotzen zuten. Askoren artean

Han egon zen garizuma osoan ez jan eta ez **edan** , ogitxo haietako baten erdia izan ezik. Askoren artean

Otoitzaren bidez harkaitzetik ura atera zuen, nekazari egarrituari **edaten** emateko. Askoren artean

Mandoei **edaten** ematen dien morroietako batek. Jon Alonso

-Nahi al du jaunak jateko edo **edateko** zerbait? Josu Zabaleta

Senar-emazteek elkarrekin **edaten** zutenean, bozkariozko une labur bat partekatzen zuten. Mirentxu Larrañaga

-Ez dugu inoiz arrotzekin **edaten** -esan zuen barrez Franklin andreak. Koro Navarro

Andere Bihotzaren eta Andere Pikaren osasunera **edan** zuten. Irene Aldasoro

Eta harrezkero **edaten** hasi zen, ia alkoholikoa egin den arte. "Zientzietakoek gehiago **edan** beharko zenukete", aurpegiratu zion Redinek zerrategira iristen ari ginela. Joseba Sarrionandia

Leku zibilizatuetan bakarrik **edan** behar da, taxiak eskura egoten direlako. Bernardo Atxaga

-Egin dezagun topa eta **edan** dezagun hiruren alde. Irene Aldasoro

Galdegin genien **edateko** ona zenez ura; baietz erantzun ziguten, gezurtiak! Piarres Aintziart

Eta hor hasi duk **edan** eta **edan** , eta jendea gonbidatzen. Koro Navarro

Asebete arte eta mozkortu arte **edaten** baitugu. Joan Mari Lekuona

Berotasun handiegiaz agurtu ninduen, **edaten** ibilia baitzen. Koro Navarro

Ulises, bien bitartean, jaten eta **edaten** ari zen, gosez amorraturik, isilik, hausnarrean, bere barruan ezkongaien galera ereiten. Juan Kruz Igerabide

'Ura ez da **edatekoa** , ura ez da **edatekoa'** , ari ziren altabozetik haiek. Pablo Sastre

2 (objektuarekin)

-Edan ura, Liubotxka! **Edan** , **edan** . Jose Morales

Ez urik **edan** , Knigge-ko iturria pozoitu omen dute-eta! Anjel Lertxundi

Edaten dugun ura ere usteldua dago. Koldo Izagirre

Katilu bat esne **edan** ondoren, San Migelek hartu zuen hitza. Josu Zabaleta

Mister Lewin txerbeldua zegoen pittin bat, ardoa **edaten** ohiturarik ez-eta. Joxe Austin Arrieta

Sei ginebrakada **edan** eta hamalau bat zigarro erre ondotik, gauaren gailurra jotzen ari nintzen. Aingeru Epaltza

Aitak eta nik bigarren kikaratara bat **edan** genuen. Daniel Landart

Hiruna kopa **edanik**, alaitu egin ziren denak. Jose Morales

Epaileak trago bat ur **edan** zuen. Lopez de Arana

Ogitarteko bat jan zuen, eta baso bat Bordeleko ardo **edan** inguruko kalexka bateko tabernan. Jon Muñoz

Tabernara joan nintzen trago bat **edatera**. Joxe Austin Arrieta

Nofuturek, trago handi bat ur **edan**, eta bi ahokada ale jan zituen. Jon Muñoz

Gazteak arno hurrupa bat **edan** zuen eta dadoak jaurtiki zituen. Elena Touyarou

Ez gara igaroko ez soroetatik, ez mahastietatik, eta ez dugu **edango** zure putzuetako urik. Jose Antonio Mujika

Ez zuen esnea baino edari biziagorik **edaten**. Irene Aldasoro

Patar botila baten eske joan zen armairura, eta baso mordo bat **edan** zuen bata bestearen ondoren. Josu Zabaleta

-Etxalde beharko diagu abiatu -erran zidan Mattinek plazako ostatuan boka bat **edan** ondoan. Janbattitt Dirassar

Jacuk zurrut batean **edan** zuen basoa. Josu Zabaleta

3 (adizlagunekin)

Asko **edan** zuen, mozkortu gabe, ordea. Matías Mujika

Kalera aterata, iruditu zitzaidan gehiegi **edan** nuela. Matías Múgica

Pilar honezkero arruntean itsasoan, hor ere polito **edaten**, baina urpekontziren bat antzemateko aukerari agur esanda. Edorta Jimenez

Zain egon ginen, poliki **edanez**. Koro Navarro

Gure aita madarikatuak, etxera majo **edanda** itzulita, beste askotan bezala jipoitu zituen bere bi alaba gazteak. Aitor Arana

- **Edan** ausarki, mutiko. Aingeru Epaltza

Blanche etengabe **edaten** ibili da Mitchek alde egin duenetik. nik beti neurriz **edan** izan dut, eta anaiak ere bai. Xabier Paya

Montanerrek irrikaz **edan** zuen ekarri zioten txokolatea. Josu Zabaleta

Emaztearen gelan egiten zituen bientzako koktelak eta hark berea astiro nola **edaten** zuen begira egoten zitzaion. Mirentxu Larrañaga

Hain zen neska txintxoa non ezin baitzuen aita ikusi horrela **edaten**. Koro Navarro

Zanga-zanga **edaten** zuen bitartean. Josu Zabaleta

Koktel hura dzanga **edateko** prest zegoen Del Valle. Alberto Ladron Arana

Quina Santa Catalina botila sukaldeko armairuan aurkitu eta osorik **edan** nuen etxeko eskaileretan bertan. Sonia Gonzalez

Osaba ongi jana eta hobeki **edana** zegoen orduko. Joan Mari Irigoien

Erruz **edaten** zuen: ohitura entretenigarria irizten zion emakumeak. Mirentxu Larrañaga

Eskutik kendu zion, kasik, zerbitzariari, eta aho-beteka **edan**. Aingeru Epaltza

Edan dut gogotik sortzetikako jestua errepikatuz. Piarres Aintziart

Haraneko putzuetatik berriro **edan** zuten arren, oso egarri baitziren ostera ere. Agustin Otsoa

Mahaira itzuli ziren berriro, eta irakiten zegoen tea bizkor **edaten** saiatu. Iñaki Mendiguren

Jerry eta Bill hantxe ibili ziren, lepotik helduta, pontxea kolpetik **edan** eta bihurrikeriak egiten. Koro Navarro

Bi gizon jertsedun zeuden haien parean zegoen bankuan, gustura **edaten**. Koro Navarro

-Edan ezak laster, berehala eraman behar haut gora eta -esan dizu poliziak atea itxi baino lehen. Rafa Egiguren

4 (-tik atzizkiarekin)

Iturritik **edaten** ariko balitz bezala. Xabier Montoia

Batek burua xirriparen azpian, bestea basotik **edaten** ari. Piarres Aintziart

Ez dela ur honetatik **edan** behar. Piarres Aintziart

Bere betiko apetito bikainaz segitu baitzuen jaten, hartaz hizketan ziharduela ere, eta Orvieto zuritik **edaten**. Joxe Austin Arrieta

Baina nik, nahiz ur hartatik ere **edan**, nahiz nire gizarte-mailako lagun haiekin ere ibili, nahiago nuen apartean. Bernardo Atxaga

Pitxerdiko txarro ilunetatik ari ziren laurak **edaten**, eta ez zuten hitzik esaten. Koro Navarro

Putzu hartatik **edaten** baitzuten artaldeek. nire gernutik kopa bat **edan** nuen, nolako gustua zeukan jakiteko. Jose Antonio Mujika

Arrautza gogorrak eta haragi orea elkarren artean banatu, eta txandaka **edan** genuen termoetatik. Koro Navarro

Botila muturretik **edanez** egin genuen dendarainoko bidea. Anjel Lertxundi

Iturri bertsutik **edaten** dute: zientzia, teknika, aurrerapena eta ekonomia determinismoaren uretatik, alegia. Iñaki Heras

5 irud/hed

Zeren ez baitzegoen, bertzalde, munduan libururik, bizitzaren liburutik **edaten** ez zuenik. Joan Mari Irigoien

Non daude *Argia* edo *Egunkaria*ren itzalean hazi diren kazetari profesionalak? Adanismotik **edaten** duen misterioa dirudi. Hasier Etxeberria

Ni baino barnagotik sartzen zelakoz Emmak deskribatzen zuen liburuetako mundu berezian, haren hitzak hurrupatuz bezala **edanez**. Daniel Landart

Ernest Hemingwayk iturri onetik **edango** ditu hango berriak, gerora lagun izango duen norbait hantxe baita. Edorta Jimenez

Esoporen hartatik **edanik**, *La Mort et le Bûcheron* eman zuen frantsesez La Fontainek. Imanol Zurutuza

Datuak urte eta garai diferenteei dagozkielako, iturri bakar eta beretik **edan** baldin badut ere. Pello Salaburu

Gizonek ardo-edateari utzi diote eta, ahoak zabalik, musika ari dira **edaten**. Felipe Juaristi

Leihoak handiak ziren, argia **edateko** ahoak bezalakoxeak. Felipe Juaristi

6 ***edanda/edana*** *adlag* hordirik.

Algara handienak Victoriak eta Adrianek egiten zituzten, berak ere apur bat **edanda** zeudelako. Bernardo Atxaga

Mariak pentsatu zuen ezen erraz ezagutzen zela zaldun bat, pixka bat **edanda** egonagatik. Irene Aldasoro

- **Edana** zetorrek -esan nuen. Koro Navarro

· **Edan** samarra dago, eta nik hortik heldu diot gaiari. Pako Aristi

7 ***edanean*** *adlag* edaten.

Beti kanpoan gauez, **edanean**, putekin eta bizimodu galduko beste batzuekin tratuetan. Edorta Jimenez

Beti bezala taberna zuloan **edanean**. Ramon Saizarbitoria

Edanean jarraitzea baino osasungarriagoa zela erantzun nuen, baina konbentzituko zintudan itxaropenik gabe. Joxean Agirre

Tendidoan, gizonezko bi **edanean** eta, galaioi irri egiten, neska bi, biotako batek bere burua ispiluan begiratuz. Edorta Jimenez

Jauregiko atarian, hantxe zeuden Ulisesen emazte Penelope bereganatu nahi zuten gizonak, jan eta **edanean**. Juan Kruz Igerabide

Beraz, egun osoan jan eta **edanean** aritu ginen. Juan Kruz Igerabide

8 ***jan-edan*** du *ad* jan eta edan.

Zeren Jaunaren gorputza dela kontuan izan gabe **jan-edaten** duenak bere gaitzespena baitu jaten eta edaten. Elizen arteko biblia

Susa hirian ere zabaldu zen dekretua, eta, erregea eta Aman **jan-edaten** ari ziren bitartean, izu-ikarak hartu zuen hiri osoa. Jose Antonio Mujika

Joan zen, bada, herri osoa **jan-edatera**, eta zer janik ez zuenari ere banatu zioten. Elizen arteko biblia

Biografietan ez da aintzat hartzen heroiak **jan-edan** egiten zuela, komunera joaten zela. Markos Zapiain

Ez joan festa-otordua egiten ari diren etxera, bertakoekin **jan-edatera**. Elizen arteko biblia

Berrogei egun eta berrogei gau gauza materialik ezertxo ere **jan-edan** gabe egon baitzen. Askoren artean

Etorri da Gizonaren Semea, **jan-edan** egiten duela, eta honela diote: "A zer tripazain eta mozkorra, zergalari eta bekatarien laguna!". Elizen arteko biblia

9 *jan eta edan* adlag

Mahaia atondua dago, alfonbrak zabalik: **jan eta edan** ari dira denak. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

alkoholik edan (5); **ardo edan** (11); **ardoa edan** (29); **ardoa edan zuen** (6); **ardorik edan** (5); **arte edan** (10); **ase arte edan** (4); **asko edan** (18); **baina edan** (7); **baino gehiago edan** (5); **bakarrik edan** (7); **bana edan** (7); **bat edan** (90); **bat edan eta** (15); **bat edan nuen** (4); **bat edan zuen** (22); **bat edan zuten** (6); **bat ur edan** (10); **batean edan** (8); **batean edan zuen** (4); **batera edan** (4); **batez edan** (10); **batez edan zuen** (7); **batzuk edan** (9); **berak edan** (4); **beretik edan** (7); **bezala edan** (4); **birra edan** (8); **birra edan ondoren** (8); **dena edan** (7); **dut edan** (4)

edan ahal (9); **edan ahala** (4); **edan arte** (5); **edan aurretik** (5); **edan baino** (5); **edan behar** (54); **edan behar dugu** (6); **edan behar dut** (4); **edan behar izan** (4); **edan beharko** (9); **edan beharra** (6); **edan beza** (4); **edan bitartean** (10); **edan dezadan** (4); **edan dezagun** (17); **edan dezaten** (8); **edan du** (37); **edan dudan** (4); **edan duen** (6); **edan dugu** (7); **edan dut** (15); **edan dute** (13); **edan duzu** (10); **edan edo** (5); **edan egin** (42); **edan egin nuen** (6); **edan egin zuen** (15); **edan egin zuten** (8); **edan egiten** (30); **edan egiten du** (6); **edan egiten dute** (4); **edan egiten zuen** (5); **edan ere** (20); **edan eta** (177); **edan eta edan** (26); **edan eta etxera** (4); **edan eta gero** (15); **edan ez** (15); **edan ezak** (15); **edan ezazu** (23); **edan gabe** (52); **edan genituen** (6); **edan genuen** (25); **edan hemendik** (4); **edan izan** (7); **edan nahi** (51); **edan nahi izan** (8); **edan nituen** (10); **edan nuen** (54); **edan nuen eta** (4); **edan ohi** (7); **edan omen** (6); **edan ondoan** (6); **edan ondoren** (43); **edan orduko** (5); **edan ostean** (8); **edan ura** (4); **edan zenuen** (4); **edan zituen** (20); **edan zuela** (7); **edan zuen** (168); **edan zuen eta** (9); **edan zuenean** (9); **edan zuten** (71); **edan zuten eta** (4); **edan zutenean** (5)

edo edan (9); **ere edan** (20); **ere edan zuen** (4); **erruz edan** (4); **esnea edan** (8); **eta ardoa edan** (6); **eta edan** (202); **eta edan beza** (4); **eta edan egin** (21); **eta edan egiten** (9); **eta edan eta** (9); **eta edan gabe** (12); **eta edan nahi** (4); **eta edan ondoren** (13); **eta edan zuen** (9); **eta edan zuten** (6); **eta edan zutenean** (4); **eta ez edan** (5); **eta ura edan** (5); **eta zer edan** (7); **ez edan** (37); **ez zuen edan** (10); **ezer edan** (12); **ezer edan gabe** (6); **gabe edan** (4); **garagardoa edan** (11); **gehiago edan** (20); **gehiegi edan** (18); **gogotik edan** (7); **gutxiago edan** (4); **guztia edan** (5); **handik edan** (4); **hiruna birra edan** (8); **hurrupa bat edan** (4); **inoiz edan** (4); **iturritik edan** (5); **jan edan** (20); **jan edan eta** (4); **jan edo edan** (7); **jan eta edan** (93); **kafea edan** (19); **kopa edan** (5); **kopatik edan** (4); **luze bat edan** (5); **nahikoa edan** (6); **nik edan** (7); **odola edan** (5); **ogia eta edan** (4); **pare bat edan** (4); **pixka bat edan** (10); **tea edan** (11); **trago bat edan** (8); **tragoxka bat edan** (4); **ur edan** (20); **ur edan nuen** (4); **ur edan zuen** (8); **ura edan** (41); **ura edan eta** (11); **ura edan zuen** (5); **urik edan** (12); **xanpaina edan** (5); **zanga edan** (5); **zanga zanga edan** (5); **zenbat edan** (4); **zer edan** (16); **zer edan behar** (4); **zerbait edan** (16); **zerbait edan nahi** (5); **zuen edan** (10); **zuen edan nahi** (5); **zurrutada batez edan** (4)

apur bat edanda (5); **bat edana** (4); **bat edanda** (11); **bat edanen** (4); **bat edanez** (12); **edana eta** (4); **edana zen** (4); **edanarazi ondoren** (4); **edanarazi zion** (4); **edanari eman** (7); **edanari emana** (6); **edanda dago** (5); **edanda zegoela** (9); **edanda zegoen** (9); **edanean ari** (5); **edanean eta** (21); **edanez eta** (5); **edanez gero** (13); **eta edana** (12); **eta edanari** (4); **eta edanda** (4); **eta edandako** (4); **eta edanean** (8); **eta edanez** (7); **eta jan edana** (4); **jan edana** (12); **jan edanak** (29); **jan edanari** (4); **jan edanean** (46); **jan edanean ari** (5); **jan edanean eta** (7); **jan edanen** (6); **jan edanerako** (4); **jan edanetan** (4); **jan eta edanez** (5); **jana eta edana** (10); **pixka bat edanda** (5); **ura edanez** (5); **zer edana** (4)

ardorik edango (8); **arte edango** (4); **bat edango** (10); **bat edango dugu** (5); **bat edango dut** (4); **edango du** (4); **edango dugu** (12); **edango dut** (13); **edango duzu** (11); **edango duzue** (5); **edango nuke** (9); **edango zuen** (4); **eta edango** (9); **ez edango** (4); **gehiago edango** (4); **gustura edango** (7); **jan eta edango** (7); **urik edango** (4); **zer edango** (7)

alkohola edatea (4); **ardoa edatea** (5); **bat edatea** (5); **edatea eta** (11); **edatea gustatzen** (4); **edateari ekin** (4); **edateari utzi** (10); **edateari uzten** (4); **eta edatea** (6); **eta edatearen** (4); **eta edateari** (5); **ez edatea** (7); **jatea eta edatea** (5); **ura edatea** (4); **ura edateagatik** (4); **uretik edatea** (4)

ala edateko (4); **alkohola edateko** (4); **ardoa edateko** (9); **bat edateko** (18); **baten edateko** (7); **da edateko** (7); **dute edateko** (8); **dute edateko urik** (6); **edateko ere** (4); **edateko eta** (49); **edateko eta ederlan** (14); **edateko eta jateko** (12); **edateko ez** (4); **edateko gauza** (6); **edateko gogoa** (4); **edateko gogorik** (5); **edateko moduko** (4); **edateko modukoa** (4); **edateko ohitura** (9); **edateko ohiturarik** (7); **edateko on** (7); **edateko ona** (13); **edateko ona den** (5); **edateko parada** (4); **edateko prest** (4); **edateko ur** (26); **edateko ura** (56); **edateko ura eta** (8); **edateko uraren** (14); **edateko urik** (25); **edateko urik ez** (7); **edateko urik gabe** (4); **edateko zer** (4); **edateko zerbait** (26); **edo edateko** (7); **ere edateko** (5); **eta edateko** (141); **eta edateko eta** (4); **eta edateko ura** (13); **eta edateko zerbait** (6); **ez dute edateko** (7); **ez edateko** (18); **ezer edateko** (6); **jateko ala edateko** (4); **jateko edo edateko** (5); **jateko eta edateko** (93); **kafea edateko** (4); **ura edateko** (21); **zerbait edateko** (5)

alkohola edaten (13); **alkoholik edaten** (5); **ardiei edaten** (8); **ardiei edaten eman** (5); **ardoa edaten** (26); **ardoa edaten zuten** (4); **arte edaten** (5); **asko edaten** (17); **baina edaten** (4); **baino gehiago edaten** (7); **bakarrik edaten** (6); **bat edaten** (47); **bat edaten ari** (12); **bat edaten zuen** (4); **batzuk edaten** (5); **bezala edaten** (6); **da edaten** (4); **diet edaten** (4); **dut edaten** (5); **duzu edaten** (5)

edaten ahalko (6); **edaten ahalko da** (4); **edaten ari** (99); **edaten ari da** (5); **edaten ari den** (5); **edaten ari nintzen** (5); **edaten ari zela** (11); **edaten ari zen** (24); **edaten ari ziren** (10); **edaten aritu** (6); **edaten da** (6); **edaten den** (5); **edaten du** (50); **edaten duela** (5); **edaten duen** (19); **edaten duena** (8); **edaten duenak** (7); **edaten duenak betiko** (4); **edaten dugu** (11); **edaten dugun** (4); **edaten dut** (20); **edaten dute** (35); **edaten dutela** (5); **edaten duten** (23); **edaten dutenak** (5); **edaten dutenek** (5); **edaten duzue** (4); **edaten edo** (4); **edaten eman** (24); **edaten eman zien** (5); **edaten eman zion** (5); **edaten emango** (4); **edaten emateko** (6); **edaten ematen** (8); **edaten ere** (5); **edaten eta** (43); **edaten ez** (24); **edaten genuen** (6); **edaten hasi** (48); **edaten hasi zen** (20); **edaten hasten** (4); **edaten ikustea** (5); **edaten jarraitu** (4); **edaten nuen** (12); **edaten saiatu** (4); **edaten utzi** (7); **edaten zituen** (4); **edaten zituzten** (8); **edaten zuela** (6); **edaten zuen** (81); **edaten zuen bitartean** (9); **edaten zuen ura** (4); **edaten zuenean** (9); **edaten zuten** (32); **edaten zuten bitartean** (5); **edaten zutenak** (5)

edo edaten (9); **emango diet edaten** (4); **ere edaten** (10); **esnea edaten** (8); **eta ardiei edaten** (4); **eta ardoa edaten** (6); **eta edaten** (87); **eta edaten ari** (4); **eta edaten duen** (4); **eta edaten dute** (5); **eta edaten eman** (12); **eta edaten hasi** (8); **ez dut edaten** (5); **ez duzu edaten** (5); **freskagarriak edaten** (4); **gabe edaten** (4); **garagardo bat edaten** (4); **garagardoa edaten** (21); **garagardoa edaten eta** (4); **garagardoak edaten** (6); **gehiago edaten** (14); **gehiegi edaten** (10); **gutxi edaten** (5); **handik edaten** (4); **hasi zen edaten** (4); **horretatik edaten** (6); **iturritik edaten** (4); **jan eta edaten** (5); **jaten eta edaten** (40); **kafea edaten** (13); **kafesnea edaten** (4); **nire odola edaten** (5); **nola edaten** (6); **nola edaten zuen** (4); **odola edaten** (13); **odola edaten duenak** (4); **sekula edaten** (4); **sobera edaten** (4); **tea edaten** (11); **tea edaten ari** (4); **ura edaten** (29); **vodka edaten** (4); **whiskia edaten** (4); **whiskya edaten** (4); **xanpaina edaten** (6); **zahatotik edaten** (4); **zen edaten** (11); **zer edaten** (7); **zerbait edaten** (5); **zerbeza edaten** (4); **zuen edaten** (5)

ardoa edatera (4); **bat edatera** (23); **batean edatera** (4); **baten edaterat** (4); **edatera behartzen** (5); **edatera eman** (7); **edatera eta** (11); **edatera gonbidatu** (5); **edatera joan** (9); **edatera joatea** (4); **edatera joaten** (7); **eta edatera** (21); **eta edatera eman** (4); **jatera eta edatera** (10); **ura edatera** (14); **zerbait edatera** (10)

---

edan[2] 1 *iz* edaria. (ikus edan izenari dagokion konbinatoria edan aditzaren konbinatorian)

Grina naturalak eta beharrak dira, funtsean, gure biziari zutik eusten diotenak: jana, **edana,** loa, arropa... Patziku Perurena

Haiek ematen zidaten jana eta **edana**. Aingeru Epaltza

Badira gauzak gure giza kondizioan saihestu ezin ditugunak, hala nola janean eta **edanean** hartzen dugun atsegina. Joan Mari Lekuona

Eta **edana** sartzen delarik etxerat, kasu! Janbattitt Dirassar

Loteriaz, **edanaz**, oro har emakumeaz ari dira hizketan. Pablo Sastre

2 *jan-edan* iz

Jan-edana bagenuen, baita aterpea ere. Biarnoko elizaren kontura emanen diate eskola, ohantzea eta **jan-edana**. Aingeru Epaltza

Hor amaituko dira zuen **jan-edan** eta nasaikeriak. Elizen arteko biblia

Jan-edanak gure kontu. Gehiegizko **jan-edanak** gaixotasuna ekartzen baitu. Xabier Mendiguren Elizegi

Hura axolatzen zen **jan-edanen** banatzeaz. Aingeru Epaltza

Jainkoaren erregetza ez baitatza **jan-edaneko** gauzetan, baizik eta Espiritu Santuaren dohain diren zuzentasun, bake eta alaitasunean. Elizen arteko biblia

Bitartean, Ulises zerrizainaren etxolan **jan-edanean** ari zen. Juan Kruz Igerabide

Han ari dira denak berarekin **jan-edanean** eta oihuka: "Gora Adonias erregea!". Elizen arteko biblia

Lasaikeria eta biziotan, **jan-edan** eta mozkorkerian. Elizen arteko biblia

---

edanaldi *iz* edaten den aldia.

Igande 19an, meza 10:30etan; **edanaldia** 11:30etan; aingira jate ostatuetan, 12:30etan. Herria

Nik edate aldera edaten nuen; bera, hala ere, lehenago mozkortzen zen ni baino, hori da gure **edanaldietan** behin eta berriz egiaztatu nuen kontua. Fernando Rey

Ezagutzen zuen gizonak sentipen hura, eta gauean **edanaldi** on bat egin beharko zuela pentsatu zuen. Irene Aldasoro

Gaur gaueko hamarretan Donostiako Zuloaga plazan izatekoa da kaleko **edanaldia**, baina Udaltzaingoak eta Ertzaintzak jaia galaraziko dutela adierazi du Elorzak. Berria - Euskal Herria

Etzazuela ahaztu Schumacher koronela maiz total egina egoten zela gauean, bere garagardo-**edanaldiak** zirela-eta. Fernando Rey

Eta hortik landa eginen da, usaiako jan-**edanaldia** eliza ondoko gela batean. Herria

---

edanarazi, edanaraz, edanarazten **1** du *ad* edatera behartu.

Jainkoa Babilonia hiri handiaz oroitu zen, hari bere zigor-kopa, bere sumin-ardoz betea, **edanarazteko**. Elizen arteko biblia

Bagoiez bagoi jautsarazi gintuzten, ortutsik salda nahas-mahas baten **edanarazteko**. Marzel Etxehandi

Hainbeste **edanarazi** zion non azkenerako mozkortu egin zen Urias. Jose Antonio Mujika

Hartu nuen kopa Jaunaren eskutik, eta Jaunak bidali ninduen nazio guztiei **edanarazi** nien. Elizen arteko biblia

Edonork eraman dezakeela zaldia errekara, baina hogei gizonek ez diotela ura **edanaraziko** berak nahi ez badu. Bernardo Atxaga

Goizeko bostetan zaldalea eman, seietan ura **edanarazi**, eta arre! Patziku Perurena

2 irud/hed

Huntan, bere bizian egin nahi gogo zuena aurkezten du beti izenburuari doakion isurian, maitasun eta esperantzazko errekan **edanaraziz**. Herria

Baina jiratze hark ez zidan ekartzen lehen bezalako zorabio gozorik, urdailaren ahoa inurritzen zidan hura bezalakorik, begiak zabal-zabal jarrarazi eta koloreak eta orduak **edanarazten** zizkidan hura bezalakorik. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
edanarazi ondoren (4); **edanarazi zien** (3); **edanarazi zion** (4); **ere edanarazi** (3)

---

edandegi ik **edantegi**.

---

edanezin *izond* ezin edanezkoa.

Ardoa **edanezina** zen eta elikagaiak janezinak. Iñaki Mendiguren

---

edangarri *izond* edateko ona, edateko modukoa.

«Txorrotatik ateratzen den ura **edangarria** da», jakinarazi du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak. Berria - Ekonomia

Ura **edangarria** dela esan ohi da; izan ere, batzuek gure edari naturala dela esaten dute, nahiz eta beraiek ere, irensgarria izateko, beharrezkoa duten egarri deritzan gaixotasun berrekorrak joak izatea. Xabier Olarra

Ez dago autorik inon, ez telefonorik, ur **edangarririk**, komunik aire egokiturik edota garbitzeko urik. Berria - Harian

Ur **edangarririk** ezingo da erabili, besteak beste, ez autoak garbitzeko ezta igerilekuak betetzeko ere. Berria - Euskal Herria

Herrialde horietan, ur **edangarria** eskuratzeko arazoak murriztea du helburu Nazio Batuen Erakundeak diru laguntzaren bidez. Berria - Gaiak

Ur **edangarria** gero eta eskasagoa dela nabarmendu zuen atzo Osasunerako Mundu Erakundeak. Berria - Gaiak

Ondorioz, egun 1,1 milioi pertsona inguruk ez dute ur **edangarririk** eta bi milioi inguru haur hiltzen dira urtero kutsatutako ura edateagatik. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ur edangarria (13); **ur edangarria eta** (4); **ur edangarririk** (5)

---

edangela *iz* edateko gela.

Edangela pribatu kez bete baten puska bat ikusten nuen, eta lau gizon kartetan. Koro Navarro

---

edangi *iz* establezimendu publiko batzuetan, edaten ematen duten lokal txiki barraduna.

Behialako **edangi** edo büveta izugarri haietan. Itxaro Borda

Bi egun lehenago, Xaxi erran zidan ikasi zuela bere Pierrak norbaiti hitz ordua Herri Urratsen jarri ziola telefonoz, Senperen, Donapauleko **edangiaren** parrean. Itxaro Borda

---

edanleku *iz* edantegia.

Pastoral honetako **edanlekuan** ez dela alkoholik salduko, eskola batek emateagatik aski ulergarria denez. Berria - Kultura

---

edantegi *(ETCn **68** agerraldi; orobat **edandegi** ETCn **15** agerraldi)* *iz* edateko lekua.

Bainan **edantegi** horretan ez da nor-nahi sartzen eta "zanpaña" edaten da. Herria

Jendeak ez baititu desberdintzen ostatuetako eta elkartetako **edantegiak**. Herria

Gizonak, **edantegiaren** kanpoko itzalean bilduak daude. Piarres Aintziart

Txartelak salgai dira Herriko Etxeko **edantegian**: 05 59 54 25 19 errearoaren 12a aintzin.

Latsa elkartea eta Ttirritta **edantegia** dira lehiaketa horren antolatzaile. Herria

Herriko Etxeak hori ikustearekin eskaini dio elkarte bakoitzari hogeitabost metro luzetasuneko **edantegi** baten karrikan ezartzeko baimena. Herria

---

edantoki *iz* edantegia.

Doi-doiak egin du ez baitut hutsegin; burua apal nindoala, karrika nagusiaren erdi erditik, bidean urdinez tindatua den geziak kudeatu nau lekuko **edantokira**. Piarres Aintziart

5etan, jokoak, **edantokia**. Herria

Edantoki eta jantoki batzordea. Herria

Agur, gure aberri egarriaren azken **edantoki** gazia; gure oinaze ameskorren ohe hotza Jokin Urain

---

edanzale *izond* edalea.

Mahomatar urzaleak kristau **edanzaleekin** borrokatzen zirenean, belarra segaren aurrean bezala erortzen ziren. Xabier Olarra

Gizon lasaia da bera; mespretxatzen ditu karta jokalariak, **edanzaleak**, errebeldeak. Pablo Sastre

Musiko batzuek **edanzaleak** izaten dira -dio Pedrok- eta horrek izorratzen ditu asko. Pako Aristi

Zoruari torlojuz lotuak, bizkarlekurik gabeko aulki altuak ilara ilaran barraren aldamenean, inoiz etxeratzeko asmorik ez duten **edanzale** egoskorren moduan. Joseba Sarrionandia

Osaba Pepi: armada austrohungariarrean ibilia, zapatari pobretua, **edanzale** handia, kontulari paregabea. Pablo Sastre

---

edar ik **eder**.

---

edari *(ETCn **33.272** agerraldi)* **1** *iz* edateko zernahi isurkari, eskuarki uraz bestelakoa.

Rosek berehala zerbitzatu zituen hiru **edariak**, Logreren begirada zorrotzaren pean. Karlos Zabala

Tabernariak, Lebigre jaunak, **edariak** ateratzen zizkien bezeroei. Karlos Zabala

Bixkotxa eta **edariak** ateratzean. Herria

Edariekin zetorren Eloy. Unai Iturriaga

Bere janari eta **edari** beretik emateko agindu zuen erregeak. Elizen arteko biblia

- **Edaria** denontzat! Koro Navarro

Trago luzea eman nion **edariari**. Anjel Lertxundi

-Uda luzea izan dezagun! -haren topa-hitzak, **edariak** eskuan izanda. Aingeru Epaltza

Nire **edarian** klenbuterola bota dute. Berria - Kirola

Goiz erretiratu ziren senar-emazteak: Nikolas, **edariak** bigundurik, Arianna, **edariak** gogorturik. Felipe Juaristi

Alferrik **edaria** uzteko desintoxikazio toki horietan sartzea. Gotzon Garate

Edariaren beroak adoreturik, kalera irten eta portu aldera abiatu nintzen. Anjel Lertxundi

Edariaren garratzak eztarria erre zidan, eztul egin nuen. Anjel Lertxundi

Edariak makur handiak egiten ditu bazterretan, Euskal Herri huntan ere bai, ongi dakigun bezala. Herria

Edariak denbora eta ahalegina eskatzen du, gauzak behar bezala egin behar badituzu. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aurpegi atsegina, ahots-doinu adeitsua, **edari** bizi ororen etsai porrokatua. Jose Morales

Zoazte eta jan haragi guria, edan **edari** bikainak. Elizen arteko biblia

Esnea hartzituz lortzen den **edari** garratza eta gasduna da kefirra. Berria - Gaiak

Gin-tonika edaten zuen -azkar edan ere- eta nik orobat egin nuen, nire pozoi gogokoena **edari** burbuilatsu horrekin gezatuz. Aingeru Epaltza

Edari alkoholdunen saileko agente bat. Anton Garikano

Edari gasdun baten ontzia zabaltzerakoan sortzen den borbor jostaria bezain apartsu. Anjel Lertxundi

Edari azukredunen publizitateak marka guztiak hautsi dituelako. Edorta Agirre

Ez zitzaien burutik ere pasatzen kaferik eskatzerik, orain **edari** isotonikoak edaten zituzten. Berria - Kultura

Ez edan ez ardorik ez **edari** hordigarririk, eta ez jan kutsaturiko ezer. Jose Antonio Mujika

Ez dut ardorik edan, ez eta inolako **edari** mozkorgarririk ere. Elizen arteko biblia

Edari minen sunda artetik. Felipe Juaristi

Ez ote dut, bada, edan behar Aitak leporatu didan **edari** samina? Elizen arteko biblia

Denek edan espirituzko **edari** bera. Elizen arteko biblia

Zapiaren azpian, **edari** gogorragoak, **edari** bizkorragoak, **edari** espirituak. Felipe Juaristi

Kvas: garagarrez **eginiko** edari alkoholdun freskagarria. Jose Morales

O'Halloranek maltazko **edari** beroak atera zituen denentzat. Irene Aldasoro

Laranjazko **edaritik** zurrutada bat hartu zuen. Aitor Arana

Faltsuturiko **edariek** alkohol metiliko kopuru handia zuten. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa)

Edari-altzari batetik hamabi urteko whisky botila eta bi edalontzi atera zituen. Migel Angel Mintegi

Hirian zuen **edari**-etxearen negozioak porrot egin zion. Irene Aldasoro

Gabriel Irisarrik ikusiak zituen **edari**-saltzaileak, ron barne-pizgarri saltzaileak batez ere. Felipe Juaristi

Edari-banatzaileak ere bertara etortzen zitzaizkidan eta eskura ordaintzen nien beti. Xabier Mendiguren Elizegi

Zeinen lirain eta ongi jantziak zeuden haren mahai-zerbitzariak eta **edari**-emaileak.

Edari-topa egiteko garaian, honela esan zion erregeak Esterri: [...]. Jose Antonio Mujika

Zer **edari** klase ote genuen pomada delako hura. Patziku Perurena

Eliztar hertsiak zirenez gero, ordea, ez zuten **edari**-tantarik dastatu. Mirentxu Larrañaga

Haietan hustu nituen hildakoentzako **edari**-opariak: esnea eta eztia lehenik, ardo gozoa gero, eta, azkenik, ura. Juan Kruz Igerabide

Kristala puskatu egin zen eta **edari** hondarrak lur zola likits zikinean zabaldu ziren. Felipe Juaristi

4 (hitz elkartuetako lehen osagai gisa)

Alkohol-**edariei** buruzko arauak. Elizen arteko biblia

Edan baituzu Jaunak emaniko zigor-**edari** samina, hondoraino edan duzu zorabiozko kopa. Elizen arteko biblia

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Harrapakinetarik hartu eta jantziak eman zizkieten larrugorritan zeudenei, bai eta oinetakoak eta janari-**edariak** ere. Elizen arteko biblia

Bazuten jan-**edaririk** aski eta pozik bizi ziren. Elizen arteko biblia

6 ***jan-edari*** *pl* janari eta edariak. ik **janari 7**.

Bazuten **jan-edaririk** aski eta pozik bizi ziren. Elizen arteko biblia

Berrogeita hamar kilometro egiten ditu egunero, **jan edari** guziak berekin dituela eta arratsetan oihalpean lo eginez. Piarres Aintziart

Erregearen **jan-edariekin** ez kutsatzeko. Jose Antonio Mujika

Bideko **jan-edariak** emateko ere agindu zuen. Jose Antonio Mujika

Jan-edari finak hartzen ikusten dituztenak. Askoren artean

7 ***janari-edari*** *pl* janari eta edariak. ik **jan**[2] **4**.

Jantziak eman zizkieten larrugorritan zeudenei, bai eta oinetakoak eta **janari**-edariak ere. Elizen arteko biblia

Han zeuden **janari**-edariak jan eta edan. Juan Kruz Igerabide

Ateratzera gindoazela, hiru erromes, hiru gizon, ostatuan sartzen dira batek tiratzen du karrosaño bat, puska eta **janari**-edariz betea. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardorik ez edari (3); **baina edari** (3); **batean edari** (3); **behar dudan edari** (3); **benetako edari** (3); **beste edari** (10); **da edari** (4); **den edari** (3); **dira edari** (3); **du edari** (3); **dudan edari** (3); **dudan edari saminetik** (3)

edari alkoholdun (3); **edari alkoholdunak** (5); **edari alkoholdunen** (4); **edari bat** (17); **edari bero** (4); **edari beroak** (3); **edari bila** (3); **edari edo** (3); **edari eta** (29); **edari eta janari** (4); **edari eta janariak** (3); **edari hordigarririk** (3); **edari hori** (5); **edari hura** (6); **edari mozkorgarririk** (4); **edari samin** (5); **edari samin hau** (5); **edari samina** (3); **edari saminetik** (4); **edo edari** (6); **eginiko edari** (3); **eta beste edari** (4); **eta edari** (54); **ez edari** (5); **ez edari hordigarririk** (3); **ezazu niregandik edari** (4); **jan edari** (4); **janari edari** (4); **janari eta edari** (18); **niregandik edari** (4); **niregandik edari samin** (4); **odola benetako edari** (3); **talo eta edari** (5); **zituen edari** (3); **zuen edari** (5)

aintzineko edariak (3); **alkoholdun edariak** (5); **alkoholik gabeko edariak** (3); **baita edariak** (3); **bere edaria** (5); **duen edaria** (3); **edaria atera** (5); **edaria atera zuen** (4); **edaria bukatu** (5); **edaria eskatu** (7); **edaria eskatu eta** (3); **edaria eta** (5); **edaria hartu** (5); **edaria hartu eta** (3); **edaria zerbitzatu** (3); **edariak ateratzen** (4); **edariak ekarri** (4); **edariak emateko** (3); **edariak ere** (8); **edariak eskatu** (3); **edariak eta** (13); **edariak ez** (4); **edariak saltzen** (3); **edariak zerbitzatzen** (3); **edariaren eta** (4); **eta edaria** (25); **eta edariak** (33); **eta edariaren** (9); **eta edariari** (4); **eta edarien** (4); **eta edariz** (7); **gabeko edariak** (3); **jan aintzineko edariak** (3); **jan edariak** (10); **jan edariak ere** (3); **janari edariak** (4); **janari edarien** (3); **janari eta edariak** (3); **janaria eta edaria** (10); **janariak eta edariak** (3); **janariz eta edariz** (4); **taloak eta edariak** (3); **zerbitzariak edariak** (3); **zion edariari** (4); **zuen edaria** (4)

---

edaribide *iz* edarien bidea.

Europatik Asiarantz egin zituzten ibilaldi luzeluzeetan behiak zituzten janari eta **edaribide**. Gotzon Garate

---

edarimin *iz* edari mina.

Neure erbestealdiko zoritxarra gogora ekartzea **edarimin** pozoitsua da niretzat. Elizen arteko biblia

---

edaritegi **1** *iz* edariak saltzen edo zerbitzatzen diren tokia.

100 metro koadro baino gutxiagoko azalera duten **edaritegi** eta jatetxeetan, gune isolatuak jarri beharko dituzte. Berria - Euskal Herria

Partidak 10 minuta irauten zuen eta bien artean bazen parada ikastolak muntatu **edaritegira** hurbiltzeko. Herria

Inoiz edo behin gau beranduan bakarrik ikusten omen zuten gautxorien biltegi diren nolabaiteko **edaritegietan**. Joxean Agirre

Bere **edaritegiari** kafetegi tankera eman nahirik, Lebigre jaunak burdina pintatuzko bi mahaitxo eta lau jarleku ipini zituen barraren parean, paretaren kontra. Karlos Zabala

"Nik gonbidatzen dut" esan eta hoteleko **edaritegirantz** abiatu zuan. Joxean Agirre

Herri batzuetan lokutorioak jarri zituzten, eta lokutorio horiek zeuden etxeetan, gehienetan bai behintzat, **edaritegia** izaten zen. Pako Aristi

2 edariak dauden tokia.

Leku guztietan goraipatzen dituzte etxe honetako sukaldea eta **edaritegia**. Anton Garikano

Goizeko laurak ziren eta etxeko **edaritegirantz** jo nuen, soinurik atera gabe Joan Mari Irigoien

---

edarizain **1** *iz* jauregietan eta, edariez arduratzen den zerbitzaria.

Ahikar hura Asiriako errege Senakeriben garaian ere **edarizain** nagusia izana zen, bai eta zigiluzaina eta administrazio eta finantzen arduradun nagusia ere. Elizen arteko biblia

Haserretu egin zen Faraoia bere bi zerbitzari haien aurka - **Edarizain** Nagusiaren aurka eta Okin Nagusiaren aurka- eta atxilotu egin zituen. Jose Antonio Mujika

Zeuk jarriko duzu kopa Faraoiaren eskuan ostera ere, **Edarizain** Nagusi zinen garaian egiten zenuen bezala. Jose Antonio Mujika

2

Edarizain -arduradunak bere ametsa kontatu zion. Elizen arteko biblia

Faraoiaren eskuetan edalontzia ipiniko duzu, **edarizain** -arduradun zinenean bezala. Elizen arteko biblia

---

edarizale *izond* edarien zalea dena.

Basarri bateko mutilzar **edarizale** bati bere auzotar baten erreguz. Berria - Gaiak

---

edasi ik **erasia**.

---

edate *iz* isurkari bat irenstea; edari biziak hartzea.

Gaixoak plazer handia sentitzen duenean ur freskoa edatean, nahiz eta jakin **edate** horrek kalte egingo diola. Imanol Unzurrunzaga

Aitzineko urtetan bezala, telethon gaualdi bat antolatua zen joanden ostiral aratsean, trinketeko gelan: talo jate, sagarno **edate** ... eta elgarrekin goxoki eta lasaiki mintzatzeko parada. Herria

---

edatearren *adlag* edateko.

Ogitartekoa ere jan oi genduan ezer edan gabe, gero txakil-ardoa **edatearren**. Iñaki Segurola

Komeriak ibili nituen muturretik **edatearren** berriz betetzeko ez den ontzitik, kokospea eta aho ingurua blaitu gabe. Aingeru Epaltza

Mozkor bat sasirik sasi-ren protagonista ere, galduriko pattarra berriro nasaiki **edatearren**, Jainkoen aita zein txori erraldoi bilakatuko da, gizatasunaz harat Markos Zapiain

---

edateko **1** *iz* edaria.

Aterako ziola bitartean gazta apur bat eta pernila, eta **edatekoa** ere bai. Unai Elorriaga

Edatekoak, aldiz, hortxe dira, barran, doan. Edorta Jimenez

Edalontziari begira zegoen ezer esan gabe, eta **edatekoa** amaitu zuenean etxera joan zen. Joxemari Iturralde

Helduena altxa da **edatekoaren** bila, bonbila hutsa mahai gainetik erretiratuz. Koldo Izagirre

-Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu **edatekoa** niri, samariar naizen honi? Elizen arteko biblia

Ziur nago **edatekorik** izango duzuela hemen nonbait! Xabier Paya

Atarrin bazkaltzekoa eta **edatekoa** ere izanen da. Berria - Kultura

Han berean, jatekoa (talo, matahami) eta **edatekoa**. Herria

Hegazkin konpainiak jatekoa eta **edatekoa** eta telefono, telex, fax edo posta elektronikoko zerbitzua eskaini beharko dizkio bidaiariari. Berria - Harian

Nik bitartean jatekoak eta **edatekoak** ekarriko ditut. Patxi Zubizarreta

2 ***jan-edateko*** *iz* janaria eta edaria.

Hirurek jan-**edatekoak** hurrupatzeko baizik ez genuen ahoa irekitzen. Aingeru Epaltza

Jan-**edatekoen** hornidurarik gabe egina zuten, nonbait, Garrüzerainoko bidea. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edatekoa ere (6); **edatekoa eskaini** (3); **edatekoa eta** (4); **edatekorik gabe** (3); **eta edatekoa** (21); **eta edatekoa ere** (5); **eta edatekoak** (8); **eta edatekoari** (4); **jan edatekoak** (4); **jateko eta edatekoa** (3); **jatekoa eta edatekoa** (8); **jatekoak eta edatekoak** (3)

---

edatun *izond/iz* edalea.

Gizona ez da **edatuna**, baina maite du noizean behin pattar on bat. Edorta Jimenez

Alboan Bulgariako idazle **edatunena** neukan. Edorta Jimenez

Txostenean, Ernesten **edatun** ospeari ekiteaz gainera, Kubako Gobernuari Spruille Braden enbaxadoreak eskaturiko diru hura eman diezaioten idazlea ekin eta ekin dabilela aipatzen da. Edorta Jimenez

Kontrako aldetik kairantz abiatu zen, bai baitzekien beste serenoa, Totorika, sona handiko **edatunetakoa** zela herrian eta apo-apoan agertzen zela bazterrotatik inork birritan deitu barik. Josu Landa

---

edecan *(orobat **edekan**)* **1** *iz* landa-laguntzailea.

Chavezen **edecan**-a da, hau da, idazkari pertsonala. Pako Aristi

Edecanak agenda handi bat ireki eta idatzi egin du: nor naizen, Pako Aristi, idazlea; elkarrizketaren gaia, egungo Venezuelako egoera politikoa, liburu baterako; eskatzen dudan denbora, orduerdi bat, beno, hamabost minutu, esan diot, agian lortzea errazagoa izango delakoan. Pako Aristi

Zortzi **edecan** dauzka presidenteak. Pako Aristi

Gaur goizean hasi da guztia, eta ilundu duenerako, andre Madalenen ahaide eta lagunen oin-arrastoak zeuden **edekanaren**, soldadu-buruaren, zerga-zainaren eta sindikoaren jauregietako atari elurtuetan. Anjel Lertxundi

---

edegi, edegiten **1** du *ad* ireki.

Denda, banketxe eta beste toki guztietan idazkunak espainieraz eta arabieraz dagoz, eta honez gainera arabiar hizkera ikasteko ikastolak txitean-pitean dabiltza **edegiten**, eta behinik behinean espainiar askok ederki ikasi dabe arabieraz hitz egiten. Pablo Sastre

2 (era burutua izenondo gisa)

Gizon kontularia, **edegia**, animosoa, irribarrez jantzia, pandero jotea -eta musikea, oro har- munduko atseginik handienetarikoa dauena. Xabier Amuriza

---

edekan ik **edecan**.

---

edeki, edekitzen du *ad* kendu.

Esperantzaz behar nion itzuli egiaz **edekitzen** niona. Jon Muñoz

Emakume hori edukiko dut; laidoztatzen duen senarrari kenduko diot: gurtzen duen Jainkoari berari **edekitzera** ausartuko naiz. Jon Muñoz

Eta nola, are arrazoi gehiagorekin, ez nion nik gorroto hartuko anaiorde horri, nire aita, nire izena eta nire maitalea denak batera **edeki** baitzizkidan? Matías Múgica

Maitalearen omenak, maitalea aurkari bati **edeki** izanaren plazerrak, bertze batek maitalea aldiz **edekiko** ote dion beldurrak, horiek guztiek hartuak dituzte emakumeak. Jon Muñoz

Haize hark nik ordu arte imajinatu eta eraiki nituen bertze iduri guztiak errotik **edeki** eta ezabatu zitian. Joan Mari Irigoien

Egunoro hiltzen gara, zeren egun oro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta **edekitzen** baitzaika. Imanol Zurutuza

Lau adierazpen horiei legeak berak bosgarren bat eransten dio, eta Alciat jakintsuak beste batzuk oraino, **edeki** ahal izan dizkionak Frantzisko Paviakoari. Piarres Xarriton

Edeki genion koadroa biltzen zuen fardelari estalkia. Joan Mari Irigoien

Auto-lasterketako pilotuaren itxura ematen zion, leku beretik **edeki** zituen eskuzorro beltzek areagotua. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edeki eta (4)

---

edema[1] *iz* gorputzeko ehunetan likidoa pilatzearen ondoriozko hantura.

Alde horretatik, barizeen sintoma nagusiak hanketako astuntasuna, nekea, karranpak, hanturak eta **edema** arinak izan daitezke. Berria - Gaiak

Autopsiak dio bihotzekoa burmuin eta biriketako **edemek** eragin zutela. Berria - Kirola

Erietxeko zuzendari Shlomo Mor Yossefek zehaztu zuen Sharonek burmuinean daukan **edema** apur bat txikitu egin dela. Berria - Mundua

Buruan **edema** bat sortu eta koma egoeran sartu zen. Berria - Kirola

Test berezi batek -fluoreszeina-angiografiak- makulako **edema** kistiko txiki bat agerrarazi zuen, baina horrek ez zezakeen noski ekarri halako gorabeheratxo harrigarririk. Xabier Olarra

Don Fermin Soraberri jauna gizon altua zen, lodia, astuna, betazalak **edema**-haziak eta aurpegia handitua zituena. Koro Navarro

---

edema[2] *iz*

Worthek bereziki bi entitate semiologiko bezala definitzen ditu "kamerako" planoa, filmatzerako planoa (berak *kadema* deitzen duena) eta "filmeko" planoa, muntatu ondokoa (berak ***edema*** deitzen duena). Josu Zabaleta

Nondik mozten dira kadema horiek **edema** bihurtzeko? Josu Zabaleta

---

eden[1] **1** *iz* pozoia.

Naja motako sugea zen, eta haren **edenak** minutu gutxiren buruan akabatzen zuen edonor. Xabier Aranburu

Neure ezpata-punta dut igurtziko **eden** horrez, eta, nik Hamleti axala harramazkatzea aski, heriotza duke bertan. Juan Garzia

Haien ardoa herensugearen pozoi, sugegorriaren **eden** hilgarri. Elizen arteko biblia

Urrutitik ikustatu nuen Itsasoari izena eman zion mendia: haren mazeletan euforbioa hazten da, **edenen** deusezgarria. Juan Garzia

Berehala nepentaren indarrak oratu zion gizon haserreari, eta hantxe geldi-geldi geratu zen, ezpata airean, oro ahantzirik, **eden** gozoa edan bailuen kratera bateko ardo pindartsuan nahasturik. Juan Garzia

2 irud/hed

Nor, bateko liburuetako oharren **edenarekin** eta besteko literatur lantegi hortako pozoiarekin, lagun guztiak konplotaren amaraunera biltzen ari zaidan sugegorri gaiztoa?

Zoritxarrez, gogotik edan nuen aberastasunaren eztiaz goxatutako **edena** eta zaharkin denda gora joan bada ere, neu, behintzat, behera joan naiz. Anjel Lertxundi

---

eden[2] *iz* paradisua.

AEBak ez dira **eden** bat eraikitzera etorri. Berria - Kultura

---

eden[3], edenen du *ad ipar* eduki, kabitu.

Arren gure lür biribil hontan **eden** eta kabitü beharko dügü denek. Herria

Bürüilaren (Setemeren) bian, bere hebenko azken mezan, eskertü dü jentezione handi batek, ez beita Mauleko elizan **eden** ahal izan. Herria

Heben jente gütik baizik ez beitaki Garona ibaila heltü zela horren nausigoa, Gaskonia (Baskonia) güzia **edenez**, eta horren hegalpean sortü zirela 1023. urtean Lapurdi eta Zuberoa Herriak, bakoitxa bere jaun bizkontearekin. Herria

Testüen llabürtzen ari gira tai gabe azken urte horietan, eta beti ber heintxüsean egoiten da taula gaineko joküa, hiru orenetan ezin **edenez**. Herria

---

edendar *iz* edengo biztanlea.

Nire aurreko erregeek Gozan, Harran eta Retzef eta Telasarren bizi ziren **edendarrak** hondatu zituztenean, libratu al zituzten beren jainkoek?

---

edendu, eden(du), edentzen du *ad* pozoitu.

Traizioaren tresna makurra, eskuan duk, kamusteke eta **edendua**. Juan Garzia

---

edeniko *izond* edenari dagokiona.

Landatartasunaren ikusmolde paradisutar, **edenikotik** begiratzen zaio orain unibertso horri, landa-giroko bizimoduaren utopia (eta ukronia) delakoan. Edorta Agirre

---

edentatu *izond* animalia espeziez mintzatuz, hortzik ez duena.

Animalia plantigrado ugaztuna, **edentatuen** taldekoa, jaioterriz afrikarra. Lopez de Arana

---

edentsu *izond* pozoitsua.

hartatik hurrupada bat aski, zortez zure ukaldi **edentsuari** ihes eginik ere, gure xedea bete dadin. Juan Garzia

Hire osaba zuan zuku zitaletik flasko bat eskuan hara limurtu, eta ene belarrien atarietan zian isuri legen-ur **edentsua**. Juan Garzia

---

eder *(**17.791** agerraldi, **284** liburu eta **4.633** artikulutan; ETCn **103.204** agerraldi; orobat **edar** g.er. eta **eijer** g.er.)* **1** *izond* bere itxura edo eragatik, ikusmenari-edo guztiz atsegina edo miresgarria gertatzen zaiona. ik **polit**. (pertsonez)

Zortzi orenetan libertatea dizut itzuliko, eta berriz jinen zara hamar orenetan izaki **eder** horrekin afaltzera. Jon Muñoz

Ezkerraldean, Lisa **ederrak**, urdaitegiko alartzean, atearen zabalera guztia hartzen zuen. Karlos Zabala

Denek bidaia on opa zioten, hurrengo ikuskatzailea gizon **ederra** izango zelakoan. Karlos Zabala

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mutil **ederrenaren** zoingehiagoka horrentzat, 15 lagun ziren hautatuak, 20 eta 29 urte artekoak, horietan bi euskaldun bakarrik. Herria

Emakume pobretxo baina **eder** bat basamortuan bizi zen. Askoren artean

Adio, adiskide **ederra**: herrarik gabe. Jon Muñoz

Basoko Loti **Ederraren** ipuineko printzeari bezala, berari ere esaldi bat iratzarri zitzaion bat-batean. Jon Muñoz

Ba omen zen behin emakume ezin **ederrago** bat oso senar jeloskorra zuena. Patxi Zubizarreta

Kantari **ederra** zen Xalbador. Menane Oxandabaratz

Neska galantak - **ederrak** - dotea aurpegian, zen esaera. Iñaki Segurola

Ederra da, dotorea. Berria - Gaiak

2 (bestelakoez)

Emakume bat zen, otzara bete ogi **eder**, arrain eta izkira-pastela ekarriz, eta eztia eta mahatsa gainera. Askoren artean

Errepidea zabaldu zutenean eraiki zuten hor burdinazko zubi **ederra**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beraien gurasoei eman zien lurralde **eder** honetatik bota egingo ditu israeldarrak eta Eufrates ibaiaz beste aldean barreiatuko. Elizen arteko biblia

Bilboko Arte **Ederretako** Museoan. Edorta Jimenez

Partekatu, hitz **ederra** benetan! Luis Elberdin

Hizkuntza bitxia zela, baina **ederra**. Bernardo Atxaga

Libertate **ederra** gauza baliosa. Michel Oronoz

Goizetik garbi, egun **ederra** dator. Patziku Perurena

Goizalde **ederrak** lanbroen gainetik egin zuen distira azkenean. Agustin Otsoa

Eguberri **ederra** joan da beraz Baigorrin. Herria

Eguzki epel **ederra** igandekoa. Iñigo Aranbarri

Lagun-giro **ederrean** zeuden bi-biak, Errioxako ardo-botila bat zeukatelarik mahai gainean. Anjel Lertxundi

Burua pixka bat luzatu zuen izter **ederrak** hobeto ikustearren. Migel Angel Mintegi

Israelgo erregea eta Josafat, Judakoa, errege-jantzi **ederretan**, aulki banatan jarriak zeuden. Elizen arteko biblia

Kontsumismo garai honetako, zer erakaspen **ederra** ! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Alimaleko eliza moderno itsusi bat agertzen da, ezker eta eskuinean landatu etxe **ederrek** bideari pareta margotsua egiten diotelarik. Piarres Aintziart

Diru **ederra** balio du! Matías Múgica

Ernest Hemingwayk handik denbora batera Habanan erosiko zuen etxe dotore **ederrean** . Edorta Jimenez

Asisko Frantziskoren idazkirik zirraragarri eta **ederrenetakoa** da. Askoren artean

Horratx kontseju **eder** antibirtuoso bat. Patziku Perurena

Gainerakoan, oraintxe estuasun **ederretan** sartuta ez banengo, ez nintzen etorriko zure denbora lapurtzera. Matías Múgica

Gauza **ederra** baita, Jainkoa ezagutzen duenarentzat, bidegabeko sufrimenduak eramatea. Elizen arteko biblia

Bista **ederra** zen handik. Bernardo Atxaga

Ez dago bere sonetoak baino ezer **ederragorik** . Patxi Ezkiaga

Bikote **ederra** osatzen omen dugu. Joseba Sarrionandia

Nun da, zure iduriko, Euskal Herriko tokirik **ederrena** ? Menane Oxandabaratz

Bake **ederra** eman zuten, lauretatik goiti, etxetik lekutu zirenean. Aingeru Epaltza

Oi zeinen santu, argitsu, **eder** eta miragarri den horrelako senarra edukitzea! Askoren artean

Horra lehen behi tropak, garbi bezen **ederrak** , iduri dutxatik pasatuak. Herria

AEBetako komunikabideetan, edonon entzun eta irakur daiteke zein **ederra** den ama izatea. Berria - Gaiak

3 (adizlagunekin)

Ikusi dugu lurralde hori eta oso **ederra** da. Argentinako musika biziki **ederra** da. Elizen arteko biblia

Biziki **ederra** izan zen une hura. Koldo Izagirre

Askoz **ederragoa** zela uste nuen. Mirentxu Larrañaga

Eta gurutze bat ikusi zuen guztiz **ederra** , Gurutziltzatuaren irudiarekin. Askoren artean

-Hain **ederra** iruditzen al zaizu? Jon Muñoz

4 handia-edo.

Popalde **ederra** bai, harena, trailer baten parekoa, alajaina! Aingeru Epaltza

Ezagun zuen lasaitu **ederra** hartua zuela: antza zenez, ez zegoen oso seguru nire erantzunaz. Alberto Ladron Arana

Furfuriaren furfuriaz iskanbila **ederra** eragin zezakeen. Patxi Zubizarreta

Ustekabeko **ederrak** izan behar ditugu azken judizioko egunean, jaun André...! Joan Mari Irigoien

Ondoko urtean Beloketik joan zirelarik aldi bat gehiago lagundu zituen, aholkuekin... diruketa **ederra** ere ematen ziela. Xipri Arbelbide

Kolpe **ederra** hartu zuen eskuineko ukondoan, baflearekin batera erori zenean. Berria - Harian

Ulisesen etxera hurbiltzen bada, saihetsean aulki-kolpe **ederrak** hartu behar ditik horrek. Juan Kruz Igerabide

Pena **ederra** ematen zuten. Patziku Perurena

Abantail **ederra** . Michel Oronoz

Ziri **ederra** sartu zigun erregeak. Felipe Juaristi

Alde **ederra** gaur egungo sektekin, ederki zikiratzen baitiote horiek sakela jendeari. Jon Muñoz

Gabonak, esaterako: izen ber-bera dute urtero, baina alde **ederra** dago, alde **ederra** dagoenez, lehengo gabonetatik oraingoetara. Joxerra Garzia

Eta lasai **ederrean** eta fidaturik ikusi baitzuen, areago nahigabetu zen. Patxi Zubizarreta

Jendea, berritasunak bultzatuta, lasai **ederrean** zebilen, elurretan, Kontxa eta Zurriola aldean. Berria - Harian

Troiatik ere altxor **ederrak** zekartzak. Juan Kruz Igerabide

Ederra duk gero, esan nion, Saint-Saënsen Dantza Makabroarekin gertatzen zaidana! gero zarata **ederreko** soinu tinko eta betean segitu zuen suak, trumoi jarraitu baten gisa. Anjel Lertxundi

5 (ironiaz-edo)

-Erreminta **ederra** hi! -Tropikoak -ohartarazi zuen jeneralak, bermut kopa argitara altxatuz, besteari ongi etorria emateko-, pasada **ederra** ematen omen ziok gorputzari. Xabier Olarra

Ederra kontua. Patxi Iturritegi

-Kaka **ederra** egin zian Soria lehenago garbituta! Aingeru Epaltza

Emakumea, egunen batean saltsa **ederrean** sartuko zaitu zeure aho handi horrek! Aingeru Epaltza

Gero zarata **ederreko** soinu tinko eta betean segitu zuen suak, trumoi jarraitu baten gisa. Juan Garzia

Batera zein bestera **ederrak** geundean gu, edo bahitu bezala edo terrorista, anarkista, komunista bezala zulatuko gintiztean! Josu Zabaleta

Ederrak geunden gu apezari pulpitua kentzeko! Koldo Izagirre

Poliziak horrekin ikusten bahau, **ederrak hartuko** dituk! Jokin Muñoz

· **Ederretarik** eskapatuak ginen guhaur! Michel Oronoz

• 6 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa) edertasuna.

Zutitu zen bada Santxo; harriturik zeukan anderearen **ederrak** , eta halaber haren jendetasun egokiak ere. Patxi Ezkiaga

Gorputz haren **ederra** , jaun André, edergarri gehiagorik behar ez zuena, zeren eta edergarri guztiak baitzituen bere! Joan Mari Irigoien

Haien oskoletako espiralen **ederrari** begira gozatu ginen. Harkaitz Cano

Mendiaz eta mendiaren **ederraz** gozatzeko. Joan Mari Irigoien

Hau ikuspegiaren **ederra** ! Patxi Zubizarreta

Nahiaren **ederra** . Iñigo Aranbarri

Heldutasunaren **ederrenean** zegoen Eugenia. Ramon Saizarbitoria

7 *eder-eder*

Eder-ederra zen eta siberiar zaharra bezain jasankorra eta izukaitza. Karlos Zabala

Baina, erregina edo esklabo, jatorri persiarreko emakume hura **eder-ederra** zen. Karlos Zabala

Molde apur bat gogorra da eslabiarra, eta neska gazte hori **eder-ederra** bilakatuko zuen, polita baino gehiago, urte batzuk pasa eta haren aurpegiera behin betiko finkaturik geratzean. Karlos Zabala

8 *eder eman*

Eder ematen zuen soinekoak argazkian, nigan baino askoz hobekiago inolaz ere, ezkur-urez eta lurrez lohitua baitzegoen orduan. Joxan Elosegi

Eder ematen zion bisaiari. Lutxo Egia

9 *eder izan* zaio *ad*

Gizarteko arau nagusiei guti-aski men egitera etorri den giza talde bati ere **eder** zaio arau horiek beroriek zangopilatzen dituen lagunik izatea bere baitan. Aingeru Epaltza

Eder zait leiho itsuen luto zibil hau. Koldo Izagirre

Eta urteak joan urteak etorri, berrogeitahamarretan-edo ibilki, beti ere **eder** zitaioan. Jose Angel Irigaray

10 *eder lan* ik **ederlan**.

11 *eder-min*

Jakin-minez -egiaren bila-; **eder-minez** -ederraren bila-; on-minez -onaren bila-. Jenaro Garate

12 ***kanpo-eder*** ik **kanpoeder**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afari eder (10); **afari eder bat** (8); **alde eder** (8); **amets eder** (10); **andana eder** (14); **apartamendu eder** (8); **apartamendu eder bat** (8); **argazki eder** (16); **argi eder** (10); **aro eder** (11); **arratsalde eder** (12); **arte eder** (97); **arte eder museoa** (8); **arte eder museoak** (38); **arte eder museoan** (19); **arte eder museoko** (12); **aurpegi eder** (13); **bazkari eder** (8); **begi eder** (24); **beltzaran eder** (15); **beltzaran eder bat** (14); **besta eder** (31); **besta eder bat** (14); **bezain eder** (41); **bidaia eder** (10); **bidaia eder bat** (8); **bilboko arte eder** (52); **da eder** (9); **dama eder** (13); **den eder** (10)

eder asko (16); **eder askoa** (20); **eder askoak** (17); **eder bat** (898); **eder bat da** (11); **eder bat egin** (34); **eder bat eman** (18); **eder bat ere** (15); **eder bat eskaini** (15); **eder bat eta** (22); **eder bat ikusi** (15); **eder bat izan** (18); **eder bat zen** (15); **eder batean** (97); **eder batek** (71); **eder batekin** (77); **eder baten** (192); **eder baten inguruan** (8); **eder baten mentura** (20); **eder baten ondotik** (15); **eder batera** (9); **eder batez** (36); **eder bati** (27); **eder batzu** (50); **eder batzuekin** (14); **eder batzuen** (19); **eder batzuk** (26); **eder bezain** (14); **eder da** (10); **eder eder** (14); **eder ederra** (33); **eder ederrak** (8); **eder edo** (12); **eder egin** (8); **eder eta** (358); **eder guztiak** (9); **eder haiek** (19); **eder haren** (17); **eder hark** (13); **eder hartan** (15); **eder hau** (70); **eder honek** (11); **eder honen** (8); **eder honetan** (14); **eder hori** (120); **eder horiek** (40); **eder horien** (8); **eder horietako** (9); **eder horietako bat** (8); **eder horrek** (34); **eder horrekin** (8); **eder horren** (29); **eder horri** (17); **eder hortan** (27); **eder huntan** (10); **eder hura** (75); **eder ikusi** (8); **eder izan** (8); **eder museoa** (8); **eder museoak** (38); **eder museoan** (19); **eder museoko** (12); **eder zegoen** (10)

egoitza eder (11); **egun eder** (61); **egun eder bat** (16); **egun eder hori** (8); **elizkizun eder** (11); **emakume eder** (52); **emakume eder bat** (10); **emazte eder** (9); **erakusketa eder** (11); **erakusketa eder bat** (10); **ere eder** (10); **eta eder** (119); **eta eder bat** (17); **etxe eder** (27); **familia eder** (21); **familia eder bat** (13); **finala eder** (11); **gau eder** (8); **gauza eder** (44); **gazte eder** (19); **gizon eder** (8); **goiz eder** (17); **gorri eder** (10); **guztiz eder** (11); **hain eder** (16); **handi eta eder** (16); **harri eder** (8); **haur eder** (8); **herri eder** (9); **hiri eder** (18); **hitz eder** (16); **ikusgarri eder** (26); **ikusgarri eder bat** (15); **ipurdi eder** (10); **irudi eder** (10); **itxura eder** (12); **izen eder** (8); **jauregi eder** (17); **kantaldi eder** (31); **kantaldi eder bat** (21); **kantu eder** (43); **kantu eder bat** (8); **kantu eder eta** (8); **kontzertu eder** (13); **kontzertu eder bat** (10); **lan eder** (18); **leku eder** (13); **liburu eder** (48); **liburu eder bat** (22); **liburu eder eta** (8); **lorategi eder** (8); **lore eder** (11); **lurralde eder** (10); **maite eder** (10); **margo eder** (8); **meza eder** (46); **meza eder bat** (14); **meza nagusi eder** (8); **multxo eder** (14); **mutil eder** (10); **nagusi eder** (8); **neska eder** (32); **neska eder bat** (10); **neskatxa eder** (12); **neure eder** (9); **nire eder** (11); **obra eder** (15); **omenaldi eder** (11); **omenaldi eder bat** (9); **opari eder** (15); **opari eder bat** (8); **oso eder** (14); **partida eder** (85); **partida eder bat** (29); **partida eder baten** (16); **partida eder hau** (13); **pilotari eder** (10); **poema eder** (9); **puska eder** (13); **puska eder bat** (10); **sail eder** (8); **sari eder** (16); **tanto eder** (8); **toki eder** (24); **zein eder** (10); **zeinen eder** (8); **zeremonia eder** (17); **zinez eder** (12); **zuri eder** (8)

adin ederra (39); **adin ederra bildurik** (13); **adiskide ederra** (56); **ahots ederra** (20); **aitzakia ederra** (10); **alde ederra** (73); **alde ederra dago** (11); **amets ederra** (9); **andana ederra** (26); **andre ederra** (11); **aro ederra** (35); **aro ederra lagun** (15); **arrakasta ederra** (71); **arrakasta ederra bildu** (13); **arrakasta ederra ukan** (23); **arras ederra** (9); **aski ederra** (8); **astindu ederra** (32); **astindu ederra eman** (20); **aukera ederra** (48); **aurpegi ederra** (16); **bai ederra** (37); **baina ederra** (34); **baina ederra da** (8); **balentria ederra** (12); **bat biziki ederra** (8); **bat ederra** (83); **bat ederra eta** (8); **bat guziz ederra** (13); **benetan ederra** (21); **besta ederra** (29); **besta ederra izan** (9); **bezain ederra** (52); **bilduma ederra** (9); **biziki ederra** (50); **biziki ederra izan** (10); **bizitza ederra** (10); **da ederra** (33); **denbora ederra** (38); **denbora ederra lagun** (9); **eder ederra** (33)

ederra agur (13); **ederra ari** (10); **ederra atera** (17); **ederra aurkitu** (8); **ederra bada** (9); **ederra bai** (8); **ederra baino** (10); **ederra baita** (26); **ederra baitzen** (17); **ederra benetan** (9); **ederra bere** (16); **ederra bezain** (10); **ederra bildu** (59); **ederra bildu da** (29); **ederra bildu du** (10); **ederra bildua** (12); **ederra bildurik** (15); **ederra bota** (8); **ederra da** (325); **ederra da eta** (9); **ederra da hori** (10); **ederra dago** (41); **ederra dauka** (11); **ederra dela** (57); **ederra den** (51); **ederra dena** (9); **ederra du** (20); **ederra duela** (8); **ederra dugu** (15); **ederra duk** (24); **ederra egin** (182); **ederra egin du** (23); **ederra egin dugu** (9); **ederra egin dute** (33); **ederra egin duzu** (8); **ederra egin zuen** (16); **ederra egina** (10); **ederra eginez** (9); **ederra egingo** (15); **ederra egiten** (51); **ederra egiten du** (9); **ederra ekarri** (9); **ederra eman** (106); **ederra eman zion** (22); **ederra emango** (21); **ederra ematen** (20); **ederra erakutsi** (10); **ederra ere** (44); **ederra ere bai** (8); **ederra eskaini** (25); **ederra eskaintzen** (8); **ederra eta** (198); **ederra ez** (20); **ederra galdu** (9); **ederra gure** (8); **ederra hartu** (89); **ederra hartu du** (8); **ederra hartu nuen** (18); **ederra hartu zuen** (25); **ederra hartu zuten** (11); **ederra hartuko** (27); **ederra ikusi** (13); **ederra iruditu** (23); **ederra iruditzen** (27); **ederra izan** (218); **ederra izan da** (73); **ederra izan zen** (60); **ederra izanen** (16); **ederra izango** (70); **ederra izango da** (19); **ederra izango zen** (8); **ederra izatea** (8); **ederra izaten** (14); **ederra jaso** (8); **ederra kontua** (25); **ederra lagun** (25); **ederra litzateke** (23); **ederra lortu** (8); **ederra omen** (17); **ederra sartu** (18); **ederra sortu** (11); **ederra ukan** (33); **ederra ukan du** (18); **ederra utzi** (9); **ederra zara** (21); **ederra zegoen** (33); **ederra zela** (32); **ederra zen** (205); **ederra zen eta** (10); **ederra zeukan** (10); **ederra zinez** (9); **ederra zuen** (28)

egia eta ederra (8); **egun ederra** (42); **eguraldi ederra** (33); **eguzki ederra** (9); **ele ederra** (9); **eliza ederra** (8); **emakume ederra** (31); **erakusketa ederra** (13); **ere arrakasta ederra** (8); **ere ederra** (29); **estakuru ederra** (8); **eta ederra** (135); **eta ederra da** (9); **eta ederra izan** (9); **eta ederra zen** (15); **eta lasaitu ederra** (9); **etekin ederra** (8); **etsenplu ederra** (12); **etxe ederra** (18); **ezinago ederra** (8); **ezusteko ederra** (10); **familia ederra** (19); **festa ederra** (8); **garaipen ederra** (10); **gau ederra** (14); **gauza ederra** (133); **gauza ederra da** (42); **gauza ederra dela** (8); **gauza ederra izango** (9); **giro ederra** (25); **gizon ederra** (24); **gorputz ederra** (10); **gozatu ederra** (12); **guziz ederra** (39); **guztiz ederra** (20); **hain da ederra** (12); **hain ederra** (44); **hain zen ederra** (11); **hiri ederra** (23); **hitz ederra** (12); **ibai ederra** (18); **ikaragarri ederra** (8); **ikusgarri ederra** (12); **ikuskizun ederra** (28); **iskanbila ederra** (8); **itxura ederra** (42); **itzuli ederra** (12); **izen ederra** (15); **izugarri ederra** (8); **jendalde ederra** (39); **jendalde ederra bildu** (12); **jende alde ederra** (20); **jipoi ederra** (15); **joko ederra** (22); **kontzertu ederra** (8)

laguntza ederra (14); **lan ederra** (65); **lan ederra egin** (23); **lan ederra egiten** (8); **lasaitu ederra** (60); **lasaitu ederra hartu** (34); **lasaitu ederra hartuko** (11); **leku ederra** (20); **liburu ederra** (18); **lisa ederra** (21); **loti ederra** (10); **meza ederra** (25); **multxo ederra** (18); **musika ederra** (12); **mutil ederra** (15); **neska ederra** (37); **neskatxa ederra** (8); **normandiar ederra** (16); **obra ederra** (12); **opari ederra** (14); **oso ederra** (100); **oso ederra da** (18); **oso ederra zen** (14); **oso gauza ederra** (9); **parada ederra** (23); **pare ederra** (8); **partida ederra** (78); **partida ederra egin** (21); **partida ederra izan** (10); **pila ederra** (8); **puska ederra** (13); **sail ederra** (17); **saldo ederra** (8); **saltsa bat ederra** (11); **saltsa ederra** (8); **sari ederra** (10); **sasoin ederra** (8); **sorta ederra** (12); **susto ederra** (8); **toki ederra** (20); **ustekabe ederra** (10); **uzta ederra** (13); **zein ederra** (40); **zein ederra den** (15); **zeinen ederra** (21); **zeinen ederra den** (8); **zen ederra** (20); **zer gauza ederra** (9); **zerrenda ederra** (8); **zinez ederra** (37); **ziri ederra** (13); **ziri ederra sartu** (8)

are ederragoa (12); **askoz ederragoa** (12); **baino ederrago** (36); **baino ederragoa** (52); **baino zein ederragoak** (10); **ederrago bat** (13); **ederrago eta** (12); **ederragoa da** (15); **ederragoa eta** (9); **ederragoa izan** (11); **ederragoa izango** (12); **ederragoa zen** (17); **eta ederrago** (17); **eta ederragoa** (15); **ezin ederrago** (27); **ezin ederragoa** (49); **ezin ederragoak** (14); **gauza ederragorik** (14); **inoiz baino ederrago** (10); **zein ederragoak** (10)

argazki ederrak (10); **arte ederrak** (19); **balentria ederrak** (8); **barre ederrak** (8); **bazter ederrak** (11); **begi ederrak** (18); **bezain ederrak** (15); **biziki ederrak** (20); **dira ederrak** (9); **eder ederrak** (8); **ederrak badira** (9); **ederrak bai** (11); **ederrak baino** (9); **ederrak dira** (50); **ederrak ditu** (11); **ederrak egin** (41); **ederrak egiten** (23); **ederrak eman** (18); **ederrak ematen** (9); **ederrak entzun** (8); **ederrak ere** (17); **ederrak eta** (77); **ederrak ez** (19); **ederrak ikusi** (14); **ederrak izan** (47); **ederrak izan dira** (14); **ederrak izanen** (9); **ederrak ukan** (11); **ederrak zirela** (11); **ederrak ziren** (34); **ele ederrak** (13); **elizkizun ederrak** (11); **emakume ederrak** (16); **eta ederrak** (46); **gauza ederrak** (40); **gazte ederrak** (11); **guziz ederrak** (11); **hitz ederrak** (32); **hitz ederrak izan** (8); **jantzi ederrak** (11); **jendalde ederrak** (10); **kantu ederrak** (26); **lan ederrak** (14); **liburu ederrak** (10); **lisa ederrak** (29); **neska ederrak** (20); **normandiar ederrak** (31); **oso ederrak** (16); **partida ederrak** (15); **sari ederrak** (34); **zinez ederrak** (8)

adin ederreko (13); **alde ederreko** (14); **arabako arte ederretako** (8); **arte ederren** (21); **arte ederretako** (92); **arte ederretako ikaslea** (10); **arte ederretako museoak** (8); **arte ederretan** (10); **denbora ederrarekin** (8); **ederraren eta** (10); **ederrekoa zen** (9); **ederren bat** (17); **ederren eta** (10); **ederrena da** (18); **ederrena ere** (9); **ederrena eta** (17); **ederrena izan** (20); **ederrena zen** (10); **ederrenak eta** (9); **ederrenetako bat** (14); **ederrenetakoa da** (10); **ederrenetarik bat** (13); **ederretako ikaslea** (10); **ederretako museoak** (8); **ederrez eta** (17); **ehuko arte ederretako** (13); **emakumerik ederrena** (13); **eta ederraren** (13); **eta ederrena** (18); **gauza ederren** (8); **gauzarik ederrena** (29); **giro ederrean** (10); **hitz ederren** (9); **hitz ederrez** (14); **itxura ederreko** (14); **itxura ederrekoa** (10); **itxura ederrekoak** (8); **kantu ederrez** (10); **lasai ederrean** (37); **leku ederrean** (12); **lisa ederraren** (9); **loti ederren** (12); **mail ederrean** (10); **normandiar ederraren** (9); **patxada ederrean** (42); **plaza ederrean** (8); **sail ederrean** (12); **toki ederrean** (14); **urte sail ederrean** (11)

ederrik egin (9); **ederrik ere** (10); **ederrik eta** (8); **ederrik ez** (9); **egun ederrik** (8); **gauza ederrik** (8); **txalo ederrik** (14)

---

ederbera *izond* edertasunarekiko sentibera.

Ez zen, ordea, itsas ahaltsuaren neurririk gabeko basakeria hura Noraren txundimenaren kausa ez bakarra ez lehena, gero eta atximur gehiago eragiten baitzizkioten bere bihotz **ederberan** Andreasen gorputzak, sasoiak eta haren izaera osoari zerion segurtasunak. Anjel Lertxundi

---

ederdun *izond* ederrekoa.

Eos goiztiri emea irten zen geroxeago, eta Nausikaa adats **ederduna** esnatu zuen. Juan Kruz Igerabide

Itsasoan urrun, Ogigia uhartea dago, non bizi baita Atlanteren alaba, Kalipso txirikorda **ederduna**, jainkosa ikaragarria. Juan Kruz Igerabide

Bazen han goian, ordea, beiraki **ederdun** denda bat, mendazko te freskagarria ematen zutena. Xabier Aranburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

txirikorda ederduna (4); **txirikorda ederdunak** (4)

---

edergai *iz* edergailua.

Autoen salmenta hazi zen gehien %2,7 eta haren ondotik arropak, **edergaiak**, kirol materiala, musika eta liburuak. Berria - Ekonomia

Hain ongi hartu zuten erosleek, non, egunak aitzina joan ahala, hiri koxkor horretako etxe gehientsuenetako apaletan arrano, putre, katagorri eta beste pizti zenbaiten gorpuak ikus baitzitezkeen **edergai**, poesia liburu mordoska batez inguratuta. Josetxo Azkona

---

edergailu **1** *iz* edergarria, apaingarria.

Karrika nagusietan argi eta **edergailu** asko badugu. Herria

Parrokoak hau eta beste esan dezake, deklama dezake, elokuentziaren **edergailuek** eta teologiaren argudioek ez dute liluratuko ezkerreko aulkien atzenean dagoen gizon argalen samalda. Koldo Izagirre

Bere euskararen **edergailu**, berrogeita hiru atsotitz eta erran molde aurkitu ditugu Arbelbideren hiru liburuetan. Xipri Arbelbide

1968an zendu da eta alarguntsak, Eleanor Boardman-ek, barneko ontasun guziak, muble, baxera eta **edergailuak**, saltzen ditu eta azkenik jauregia eta kanpoak 1977an. Michel Oronoz

Erakusketa hortan aurkituko dira artista askoren obrak [...]: margolan, xixel lan, argazki, altzari, beztimen, usain on, **edergailu** eta bertze, denek bakearen gaia dutela zabaltzen. Herria

Haiekin batean, "Kontradantzak" nexkatoekin, dantza klase horiek ere ontsa pollitak baitira Bolant egunaren **edergailutako**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zergatik bada nahi zuen **edergailuzko** kutxa hura erosi. Daniel Landart

Ezen tropo, irudi, **edergailuzko** lorebaratze naharo horrek ez baitu onartzen egia zorrotzak baiezten ez duen xehetasun bat bakarrik ere. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zuretzat, ez dira **edergailu** edo apaingarri huts Ikuriña, Himno, Lekuko eta holakoak. Herria

Zaldiak **edergailu** aberatsez apaindurik. Jose Morales

Kanpo eta barne **edergailu** ugariz jantzirik eta inguraturik. Askoren artean

Lurrak gogoarazi daut, dio, espazio beltzaren erdian, Eguberriko izaietan, emaiten diren **edergailu** distirentak. Herria

Auzoko eta ez horren hurbileko enbaxadoreek ere eskumuinekin batera ehun preziatu, kaobazko **edergailu** eta urrezko idunekoak eskaini zizkioten. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
edergailu eta (5); **eta edergailu** (4)

---

edergarri

1 *iz* edertzen duen gauza.

Ez zeukaten ez adreiluzko hormarik, ez zurean zizelaturiko irudirik, ez bestelako **edergarririk** batere. Jose Morales

Ñir-ñir egiten zuen karrozeria margotu berriko gris metalizatuak; distiraka, orobat, autoaren **edergarriak**. Jon Muñoz

Ema umeak soinean zeramatzan **edergarri** guztietan gailentzen zen eskuin eskuko harri puska biribila. Aingeru Epaltza

Erroman bertan, aita santuen jauregietako **edergarri** eta irudi gehienek paganismoa dute eredu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Errezibimendua ikusgarriagoa izan zedin, bertzalde, apaingarriz eta **edergarriz** josi genuen jauregia, sala nagusia batik bat. Joan Mari Irigoien

Eta bizitzarekin literatura egiten, baina **edergarririk** gabe. Berria - Kultura

Etxearen aurrealdea ikusten zen, harrian zizelaturiko **edergarri** bihurri ugarirekin eta kapitel korintoarrekiko zortzi zutarritan bermaturik. Jose Morales

Urrezko **edergarri** baita haren uztarria, uhalak purpurazko lokarri. Elizen arteko biblia

2 *izond* edertzen duena.

Ukendu **edergarrien** usainak betetzen zuen gela. Juan Kruz Igerabide

Dohain **edergarri** berri hark biziki hunkitua, hari gogobeterik so, hasieran ez nizkion kontsolamendu moldakaitzak baizik eman. Jon Muñoz

3 (-en atzizkiaren eskuinean mugatzailerik gabe)

Aloxana, emakumeen ezpainen **edergarri** izateko zen hura, oiloen edo pitoien iraizkinetatik irtena zela pentsatzeak ez zidan inolaereko larritasunik eragiten noski. Juan Garzia

Okelaren hornigarri, osagarri nahiz **edergarri** jarritako barazkiak bildurik, batzuek otordua egiten zuten. Edorta Jimenez

Alkatearen ardurari esker, bero sargoriko egunetan itzal hozkirria egingo duten zuhaitz mardul eta hostotsuz jantziriko lorategia ezarri digute hiriaren **edergarri**. Jose Morales

Ezen maitasunak ez baitio heriotzari izurik, maitasuna bizitzaren festa, bizitzaren **edergarri**, bizitzaren musika denez. Felipe Juaristi

Okelaren hornigarri, osagarri nahiz **edergarri** jarritako barazkiak bildurik, batzuek otordua egiten zuten. Edorta Jimenez

---

edergintza

iz ipar artea.

Izan dadien zientzien aldetik edo **edergintzaren** aldetik aurrerenatuerik da Frantzia Eifel dorrearekin, margolariekin. Herria

Hain zuzen 1968ko mugimendua, emazteen manifestaldiak, **edergintza** berritua literaturan, zineman, kantuan, aintzinamendua industrian eta bizipidean. Herria

Hain zuzen heldu zaio horma edo izotz garaia eta leizetan gordetzen da, han beroki egoiten, han ere sortzen du **edergintza** marrazkiak eginez, Lascaux, Otsozelaia, Ekain, Santimamiñe, eta zilo edo leize askotan ikus ditezkeenak. Herria

Andere honek atxikitzen du **edergintza** saltegi bat Pannecau karrikan. Herria

Andere honek atxikitzen du **edergintza** saltegi bat Pannecau karrikan. Herria

---

edergose

izond ederraren gose dena.

Eta ba ote da munduan deus zentzagarriagorik, deus poetikoagorik, gure begi **edergoseok** ustekabean oinetako zahar abandonatu batekin topo egiten dutenekoa baino? Patziku Perurena

---

ederki

*(**2830** agerraldi, **215** liburu eta **1.065** artikulutan; ETCn **10.236** agerraldi; orobat **eierki** g.er.)* **1** *adlag* behar den bezala, oso ongi.

Ederki, jauna. Xabier Olarra

- **Ederki**, sinesten dizut, baina ez dut sinesten berogailuarekin estropozo egin duzunik. Fernando Rey

Ederki, ba, orduan tipo bat ailegatu da, hamar zentabo ordaindu dituena bere oinetatik sei metro beherago lurperaturik dagoen neskari periskopiotik begiratzearen truk. Fernando Rey

Herri osoak erantzun zuen: - **Ederki** esana!

Ederki zegokion postontziko izena: Felicitas Diaz. Aingeru Epaltza

Ederki konponduko gaituk. Hasier Etxeberria

Hik, Edu, **ederki** dakik zertaz ari naizen, ezta? Aingeru Epaltza

Ederki zenekien horiexek zirela zeure kartak. Hasier Etxeberria

- **Ederki** moldatzen zara erdaraz, Bixenta! Txillardegi

Mekanismo dramatikoak **ederki** funtzionatzen du edonola ere. Juan Garzia

-O, **ederki**, oso ondo -esan zuen astiro-. Iñaki Mendiguren

2 (beste adizlagun baten ezkerrean)

Ederki, oso **ederki**! Josu Zabaleta

Bai, horrelaxe! Oso **ederki**, lagunok! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Biziki **ederki** iragan da Omiasainduko eguna. Herria

Arras **ederki** iragan da eskola pribatuak martxoaren 13an antolatuta zuen mus xapelgoa. Herria

Bi emazte, ama-familiako gazteak, orai haurrak 10-14 urtetan dituztenak, eta haiek eskuara erabiltzen dute arras **ederki**, eta arras errexki. Menane Oxandabaratz

Etxepare medikuaren begi zoliek orain dela hainbeste urte ikusi zuten, aski **ederki** gainera, japoniarrak eskulangile gaitzak zirela. Pello Salaburu

Ondo **ederki** zeukaten ikasita gidoia, eta inor ez zegoen inprobisatzeko prest. Karlos Linazasoro

Zinez **ederki** iragan da eskola girixtinoko burrasoek, joanden igande aratsaldean antolatua zuten mus zoingehiagoka. Herria

Aspaldian ez nuen ikusi hain **ederki** jokatzen frantses taldea. Herria

Zein **ederki** egiten duzun! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 asko, oso.

Baina hemen dago, jaio da komunetako mutil-artea, **ederki** kostata jaio ere, larrutik ordainduta. Iñaki Segurola

Andrea ez ezik, agerian zen semea ere **ederki** aspertua zela nirekin bidez bide. Aingeru Epaltza

Bai, Patri, sudurra **ederki** itxita eraman beharko da aurrerantzean, bai Frantzian eta baita Espainian ere. Hasier Etxeberria

Ederki damutu zitzaien kremarik eraman ez izana. Jokin Muñoz

Ederki gustatua gelditu hintzen, iazko udan ezagutu huelarik. Aingeru Epaltza

Ederki oroitzen naiz, konparazione, nola, Pirinioetako Bakea sinatu zen denbora hartan. Joan Mari Irigoien

Asto-matrailezurraz **ederki** astindu ditut, asto-matrailezurraz mila gizon hil ditut. Elizen arteko biblia

Bera ziztatzen zuten **ederki** zeuk harrotutako erleek. Hasier Etxeberria

-Oilaskoa **ederki** hoztuko zaik, arinago jaten ez baduk... Joan Mari Irigoien

4 (zein gisa, adkor)

Beraz -orain gure hizkeran jarraitzeko- gure burua edo kontzientzia arautegi bat da: egiak zernolako zer izan behar duen, edozein obraren ongiak edo **ederkiak** zer izan behar duen, a priori daukagu. Joxe Azurmendi

5 ***ederki asko*** *adkor* ederki.

Mendizabalek **ederki asko** laburbiltzen du kooperatiben gidaritzaren inguruan sortzen den egungo erronka eta kontraesana. Iñaki Heras

Ederki asko dakizue hobe dela borrokarik gabe lortzen den bakea odol asko isuriz lortzen dena baino. Jon Alonso

Ederki asko nekien ez zuela axola biotatik zeinek heltzen zion uztaiari; hortaz, nire lekua utzi nion eta txopara joan nintzen, upelera. Koro Navarro

Ezin gaituzte part botata utzi, konpromisoak dauzkate gurekin, **ederki asko** aberastu dira gure kontura. Jon Alonso

Ederki asko eusten zion bere betiko izaerari, xehetasunetan ere zehatz-mehatz izan beharraren maniari. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras ederki (35); **arras ederki iragan** (13); **aski ederki** (18); **bai ederki** (20); **baina ederki** (22); **bainan ederki** (7); **bat ederki** (6); **batek ederki** (6); **bazterrak ederki** (5); **berak ederki** (11); **besta ederki** (6); **bestak ederki** (8); **bezain ederki** (6); **bildu da ederki** (6); **biziki ederki** (26); **burua ederki** (6); **da ederki** (23); **dena ederki** (5); **denak ederki** (31); **denak ederki iragan** (5); **denak ederki joan** (9); **dira ederki** (6); **du ederki** (17); **dute ederki** (6)

ederki adierazten (8); **ederki apaindua** (9); **ederki apaindurik** (5); **ederki aprobetxatu** (11); **ederki aprobetxatu zuen** (6); **ederki ari** (24); **ederki ari da** (6); **ederki aritu** (12); **ederki aritu zen** (8); **ederki arizan** (16); **ederki arizan dira** (7); **ederki aski** (9); **ederki asko** (114); **ederki asko azaltzen** (5); **ederki asko daki** (6); **ederki asko ezagutzen** (10); **ederki asmatu** (10); **ederki astindu** (6); **ederki atera** (5); **ederki atxiki** (8); **ederki azaldu** (5); **ederki azaltzen** (5); **ederki baino** (5); **ederki baliatu** (59); **ederki baliatu du** (5); **ederki baliatu zituen** (6); **ederki baliatu zuen** (25); **ederki baliatu zuten** (9); **ederki baliatuz** (6); **ederki baliatzen** (10); **ederki berotu** (5); **ederki bete** (13); **ederki betetzen** (6); **ederki bildu** (8); **ederki bildu da** (7); **ederki bizi** (11); **ederki bururatu** (14); **ederki bururatu da** (6); **ederki dago** (9); **ederki daki** (14); **ederki dakigu** (5); **ederki dakit** (5); **ederki dakite** (5); **ederki dakizu** (12); **ederki damutu** (8); **ederki egin** (30); **ederki egiten** (21); **ederki eman** (8); **ederki emanak** (5); **ederki ematen** (10); **ederki erakusten** (11); **ederki erakutsi** (15); **ederki esan** (7); **ederki esana** (6); **ederki eta** (22); **ederki ez** (6); **ederki ezagutu** (6); **ederki ezagutzen** (45); **ederki ezagutzen ditu** (7); **ederki ezagutzen du** (10); **ederki ezagutzen zuen** (5)

ederki gaude (10); **ederki gogoratzen** (6); **ederki gostarik** (7); **ederki gozatu** (8); **ederki hartu** (8); **ederki hasi** (22); **ederki hasi zuen** (6); **ederki hola** (5); **ederki hori** (5); **ederki ikasi** (6); **ederki ikusten** (20); **ederki ikusten da** (10); **ederki iragan** (98); **ederki iragan da** (60); **ederki iragan dira** (22); **ederki islatzen** (9); **ederki jakin** (12); **ederki jo** (9); **ederki joan** (50); **ederki joan da** (11); **ederki joan dira** (25); **ederki jokatu** (15); **ederki jokatzen** (6); **ederki kostata** (17); **ederki kostatu** (6); **ederki lagundu** (6); **ederki laguntzen** (5); **ederki lo** (5); **ederki lortu** (5); **ederki mintzo** (5); **ederki moldatu** (9); **ederki moldatzen** (24); **ederki moldatzen da** (5); **ederki nekien** (9); **ederki nekien nik** (5); **ederki ohartu** (6); **ederki ohartzen** (7); **ederki oroitzen** (15); **ederki oroitzen naiz** (5); **ederki ospatu** (5); **ederki pasatu** (5); **ederki pasatzen** (6); **ederki pentsa** (5); **ederki profitatu** (5); **ederki saristatua** (5); **ederki sartu** (5); **ederki sentitzen** (5); **ederki sufritu** (20); **ederki sufritu zuen** (11); **ederki ulertu** (10); **ederki ulertzen** (10); **ederki zekien** (21)

eguna ederki (10); **eguna ederki iragan** (8); **eliza ederki** (7); **ere ederki** (72); **eta ederki** (110); **eta ederki baliatu** (5); **eta zoin ederki** (11); **hain ederki** (44); **hau ederki** (6); **hoin ederki** (20); **hori ederki** (23); **horrek ederki** (5); **iragan da ederki** (8); **jendea ederki** (20); **jendea ederki bildu** (6); **kermeza ederki** (5); **kermeza ederki iragan** (5); **lana ederki** (6); **lehiaketa ederki** (5); **nik ederki** (7); **orduan ederki** (5); **oso ederki** (24); **taldeak ederki** (8); **zein ederki** (30); **zeinen ederki** (8); **zen ederki** (8); **zinez ederki** (5); **zoin ederki** (26); **zoin ederki ez** (6); **zuen ederki** (5)

baino ederkiago (6); **ezin ederkiago** (12)

---

ederkisko *adlag adkor* ederki.

Haatik **ederkisko** ulertua du Kattalinek ideia ilun horietaz den mendrena jakiten badu, ez duela barkatuko Sophie-ri begiak irekarazi arte. Eneko Bidegain

Pena emaiten zuen, gizagaizoak, zango bat bertzearen aitzinean ezin ezarriz, balantzaka, ezin aitzinatuz, buruan zituen xoradurak inguruko presoek **ederkisko** asmatzen baitzituzten. Eneko Bidegain

Baina ez zen sekulan etxean atxiki behar, bertzenaz alemanek dena eramanen baitzuten eta haien sabelak **ederkisko** beteko Saran, Euskal Herriko bertze herrietan bezala. Eneko Bidegain

---

ederkitxo *adlag adkor* ederki.

Bai noski, eta **ederkitxo** dakite hori alor horretan lan egiten duten profesionalek. Iñaki Heras

Beraz, erakundearen nondik norakoa **ederkitxo** ezagutzen duen norbaitenak dira hitzak. Iñaki Heras

Dagoeneko **ederkitxo** dakigunez zenbait gauza merkatuaren eskutan uztea erokeria hutsa dela. Iñaki Heras

---

ederlan *(orobat **eder lan** g.er.) iz* artelana.

Orotara, 50 **ederlan** bildu ditu BBK Fundazioak; «olio ugari eta marrazki bakar batzuk». Berria - Kultura

Orotarat, lau ehun bat **ederlan** guziz koloretsuak eta argiak. Herria

Ederlan berriak nahi zituen, eskultoreari espresuki eskainitakoak, haren omenez eginikoak. Berria - Kultura

Esku trebeek landutako **ederlan** suntuos haien guztien artean, naturak berak bere sabel eta magaletik emandako nenufare zuri bat ikaragarri handia zegoen, ederretan ederrena. Xabier Mendiguren Elizegi

Bilduma iraunkorreko zazpi **ederlan** zaharberrituko ditu Arte Eder museoak aurten. Berria - Kultura

Orai, feria egun horietarik, eskulan eta **ederlanak** gehienetan josiz jateko eta edatekoari. Itxaro Borda

Egun txarretan, bete-lana ez du **ederlan** egingo. Andoni Egaña

Ortziraletik iganderat, Donibane Garazin, **ederlan** erakusketa nagusia. Herria

Ederlan -besta izanen da. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
edateko eta ederlan (14); **ederlan asko** (4); **ederlan besta** (3); **ederlan erakusketa** (5); **ederlan eta** (8); **ederlan eta beste** (4); **eta ederlan** (18)

---

ederlangintza *iz* artegintza.

Ederlangintzan trebe diren batzuk bazuten haratxago beren xokoa. Herria

Feria alegera eta herrikoia, etxetako zernahi ekoizpen salgai, **ederlangintzako** ainitz gauza ere ba! Herria

---

ederleku *iz* gauza ederren lekua.

Borrokaleku deritzote **ederleku** deritzozunari. Xabier Montoia

---

edermen *iz* edertasun.

Nik uste dut poesiaren eta **edermenaren** sustrai beretatik sortzen dela erlijioarekiko kezka eta interesa; Herria

---

ederragotu, ederrago(tu), ederragotzen da/du *ad* ederrago bihurtu.

Parkeak **ederragotzea**. Harkaitz Cano

Horrez gainera, neure gogara aztertzen ahal nuen halatan begitarte xarmant hura, malkoen lilura ahaltsuaz are **ederragotua**. Jon Muñoz

Ikusi ditut begi xarmangarri horiek nigan finkatuak, amoltsutasunaren eiteak **ederragotuak**. Jon Muñoz

---

ederraizun *izond* sasiederra.

Begira dezadan, bada, aitzina, eta har dezadan adore aurre egiteko garai zail hauei, egoera itsusienak ezkutatzen baitituzte eufemismo **ederraizunekin**. Anjel Lertxundi

---

ederraldi *iz* aldi ederra.

Azken urte horietan katalana **ederraldi** bat gozatzen ari zen. Joxe Azurmendi

---

ederresmendu *iz* ederrespena.

Edo bederen nik hartaz itxura hori neukan, eta beraz beti **ederresmendurekin** begiratzen nion. Daniel Landart

---

ederrespen *iz* ederrestea.

Erabat ezabatu behar ditu isuriak, atxikimenduak, bere buruarekiko **ederrespenak**. Joan Mari Lekuona

Ederrespen berdinaz ikusten zuen naturak gizakiaren miseria, honen zitalkeria barkatzen eta honen oinazea onartzen. Anton Garikano

---

ederreste *iz* eder iriztea.

Irakurketa ozena edota dastaketa isila eskatzen duten testuak dauden bezala, zeruak ere baditu, ikusmirazalearentzat, bere baldintzak: **ederreste** isila besterik ez du onartzen, begirada bakartiaren irakurketa biluzia. Pako Aristi

---

ederretsi, ederrets, ederresten dio *ad* onartu; eder iritzi.

Hire burua bekatari arrotzat ez baina zintzo umiltzat **ederretsi**. Patxi Ezkiaga

Bagenekien zer sinetsi, zer egin eta zer **ederretsi**. Piarres Aintziart

Ederretsi egiten duzue heroismoz edo justizia-gosez jantzirik aurkezten zaizuen guztia. Anjel Lertxundi

Neskatoaren ilearekin jolasten zebilela, batera eta bestera higituz, ile-oinaren lerroa **ederretsi** zuen eta, bereziki, garondo luzeko lerroa, bizi-bizia, marraztua izan balitz bezala. Ibon Uribarri

Nitaz den bezanbatean, zu **ederretsi** izana baitut merezimendu bakarra, ez dut merezimendu hori galdu nahi. Jon Muñoz

Ez dut uste batere **ederretsi** zuenik nere erantzun halamoduzkoa. Patziku Perurena

---

ederreztatu, ederrezta(tu), ederreztatzen du *ad* edertu; zuritu.

Gida praktiko sinplea ala argazkiz **ederreztatua** hartuko zuen kalkulatzen zihoala emazte batek kuskatu zuen. Itxaro Borda

Hilketak **ederreztatzeko** sineskeria ere tartean sartzen da. Gotzon Garate

Azken batean horixe baita literatura: gezur txiki bat **ederreztatzea** egia txiki baten itxura har dezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pailarda baten musua, apaingailuzko ore finez **ederreztatua**, ez zaio estaltzen duenari itsusiago, ene egintza ene hitz guztiz margo-mozorrotuokin baino. Juan Garzia

---

ederruste *iz* ederra dela ustea.

Ez inondik ere Tolosako euskararen **ederrusteak** engainaturik bizi naizelako, baina harritu egin nau Kandidoren epaiak, askotan aditua bainaiz Goizuetan "andretxaparoa" gauza berbera adierazteko. Patziku Perurena

---

edertasun *(1.362 agerraldi, 198 liburu eta 177 artikulutan; ETCn 8.914 agerraldi)* 1 *iz* ederra denaren nolakotasuna.

Hiru hauek, hots, era, **edertasuna** eta ordena Jaungoikoak sortutako izaki espiritual zein korporal guztietan aurkitzen ditugun ongi orokor gisakoak dira. Imanol

Unzurrunzaga

Hitzaldi dotore eta ongi moldatuan bezala gertatzen da hemen, gauzatuz eta urrunduz doazen silaben eta hotsen joan-etorriak osatzen du **edertasuna**. Imanol Unzurrunzaga

Artistak berak ere ikusleari nolabait azaldu nahi dio bere artelanaren **edertasuna**. Imanol Unzurrunzaga

XX. mendean, gustu kontzeptutik aldenduz, estetikaren teorizazioa **edertasunean** soilik hasi zen sakontzen, **"edertasuna"** eta "balio estetikoa" sinonimotzat onartzen hasiak baitziren. Askoren artean

Edertasuna, beraz, propietate bakuna da, ezin analiza daitekeena. Askoren artean

Ez dago **edertasunik** teknozientzian, ez dago jakite teknikorik arteetan? nola elkartu eraginkortasuna eta **edertasuna**? Askoren artean

Asko galdu izan dira emakumearen **edertasunagatik**, sua bezala pizten da amodioa halakoaren aurrean. Elizen arteko biblia

Gure etxean eztabaida sutsuak izaten ziren jendearen **edertasunaz** edo itsustasunaz. Fernando Rey

Edertasuna sortzen ari zara, baina, aldi berean, borroka ere bada, perfekzioa bilatzen saiatzen zarelako, jakinda ezinezkoa dela hori lortzea. Berria - Kultura

Erabat harriturik gelditu ziren Juditen **edertasunaz** eta esan zioten: [...]. Elizen arteko biblia

Esaldi batean laburbiltzen zen logaritmoen **edertasun** eta eraginkortasun osoa: "Biderkadura baten logaritmoa logaritmoen batura da". Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Edertasun dotore, klasiko batek ukitua. Joxemari Iturralde

Edertasun handiko irudiak. Moda marka handiek emakumeei ezartzen dioten **edertasun** femeninoaren mitoa salatzeko. Berria - Harian

Edertasun harrigarri hark denen aurrean distiratzen zuela. Askoren artean

Edertasun sentigarria eta beronen gozamenak eta bekatarien zigorra. Imanol Unzurrunzaga

Haren begitarteari, arimaren ispilu, **edertasun** miresgarria zerion. Patxi Zubizarreta

Elurrak tristura ekarriko du, eguzkia aterako da baina orduan **edertasun** malenkoniatsu bat eman besterik ez dio eginen zuritasun doilor honi. Koldo Izagirre

Begiak zuzen iragarri du, horrela ikusteko egina baita; arimak, ordea, oker jokatu du, **edertasun** gorena erreparatzeko adimena sortu baitzen, ez begia. Imanol Unzurrunzaga

Edertasun goibel bat bada ere. Pako Aristi

Oi Pobretasunaren **edertasun** berdinik gabea [...]! Askoren artean

Horrela, **edertasun** naturala Izadiaren helburuen forma da. Askoren artean

Jainkosa mitologikoen pareko presentzia zeukala iruditu zitzaien biei; **edertasun** paganoa eta sakrilegoa. Fernando Morillo

Gezurrezkoa da xarma, hutsala **edertasuna**. Elizen arteko biblia

Berezko **edertasuna** behar dugu hauteman, ez bakarrik entitate fisikoei eta espiritualei lotutakoa. Askoren artean

Azken hori da Platonen teorian benetako **Edertasuna**, hau da, denboraz harago dagoen Forma, espaziala ez dena, ezagutzaren betiko nozio aldagaitza. Askoren artean

Txikia eta isila zen, bere etxe baxuekin eta kale estuekin, ez zuen aparteko **edertasunik**. Eskarne Mujika

Gorputzezko **edertasunen** egileek ere euren artelanak burutzeko zenbakiak erabiltzen dituzte. Imanol Unzurrunzaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire arima gaixoak behar-beharrezkoa zuen **edertasun** dosia hartzeko tokirik egokiena zen. Alberto Ladron Arana

Ezagutu dut jendea egunero bere bizitzari **edertasun** gradu bat gehitzen saiatzen zena, aurpegian bilaketa horren ilusioa nabari zitzaiona. Pako Aristi

Dagoen egoeran, **edertasun** miraririk ezin zaiolako eskatu Realari. Berria - Kirola

Belaunaldi bakoitzak bere errealismoa sortzen du, ordura arteko **edertasun** ereduari kontrajartzen zaiona. Berria - Kultura

Kontsumo-gizarteak ezarritako **edertasun**-modeloaren aurka. Ana Urkiza

Jarduera eta ohitura ederrak maitatzen ikasi beharra dago, baita horiek denek **edertasun**-mota bat elkarrekin batera dutela ohartzen ere. Askoren artean

Hala ere, **edertasun**-judizioak subjektiboak ere badira, eta Kantek oso egonkorrak eta unibertsalak direla onartu zuen. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez nintzen Marina Gonzalezen nire gutizia ezkutua uztekotan, baina emakume-**edertasunaren** edozein estandar objektiboren arabera, hura ez zen AEPren herena ere. *Faroranz*-en, giza **edertasuna** buru ukatzearen araberakoa da. Oskar Arana

Panpinak, objektuak eta proiektatzen diren itzalak ahalik eta eskematikoenak dira eta era ezin delikatuagoan maneiatzen dira, betiere barne-**edertasunaren** izenean. Berria - Kultura

Boteareren ele-**edertasuna**. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean edertasun (3); **baina edertasun** (5); **baina edertasun hori** (3); **bere edertasun** (21); **bere edertasun betean** (3); **bere edertasun eta** (3); **duten edertasun** (3); **edertasun bat** (5); **edertasun betean** (3); **edertasun edo** (4); **edertasun eta** (26); **edertasun eta ordena** (3); **edertasun guztia** (6); **edertasun handiko** (3); **edertasun haren** (3); **edertasun hartan** (3); **edertasun hori** (12); **edertasun horrek** (6); **edertasun hura** (8); **edertasun oro** (7); **edertasun paregabez** (3); **edertasun zoragarria** (4); **edo edertasun** (3); **eta edertasun** (22); **hainbeste edertasun** (4); **haren edertasun** (7); **honen edertasun** (4); **nire edertasun** (3); **zure edertasun** (3)

apoaren edertasuna (5); **artea eta edertasuna** (3); **baina edertasuna** (4); **baita edertasuna** (4); **baten edertasuna** (6); **bere edertasuna** (18); **beren edertasuna** (4); **berezko edertasuna** (6); **bizitzaren edertasuna** (3); **da edertasuna** (3); **den edertasuna** (5); **du edertasuna** (4); **duen edertasuna** (3); **edertasuna agerian** (3); **edertasuna aipatu** (3); **edertasuna areagotzen** (3); **edertasuna azpimarratzen** (3); **edertasuna bera** (3); **edertasuna bilatzeko** (3); **edertasuna dela** (4); **edertasuna du** (4); **edertasuna dute** (3); **edertasuna ematen** (5); **edertasuna ere** (5); **edertasuna eta** (55); **edertasuna eta aberastasuna** (3); **edertasuna eta ordena** (9); **edertasuna eta tristezia** (3); **edertasuna ez** (11); **edertasuna ez da** (3); **edertasuna goraipatzen** (3); **edertasuna ikusten** (4); **edertasuna maite** (4); **edertasuna zuen** (4); **ere edertasuna** (4); **ere edertasuna agerian** (3); **eta edertasuna** (36); **eta edertasuna ematen** (3); **gabe ere edertasuna** (3); **gorputzaren edertasuna** (3); **haien edertasuna** (4); **halako edertasuna** (5); **haren edertasuna** (17); **horren edertasuna** (5); **naturaren edertasuna** (4); **zion edertasuna** (3); **zuen edertasuna** (3); **zure edertasuna** (5)

bazterren edertasunak (3); **bere edertasunak** (4); **bere edertasunarekin** (4); **bere edertasunaren** (4); **bere edertasunaz** (6); **bere edertasunean** (6); **edertasunak eta** (7); **edertasunak ez** (9); **edertasunak ez du** (3); **edertasunaren aurrean** (5); **edertasunaren bila** (3); **edertasunaren esperientzia** (5); **edertasunaren eta** (7); **edertasunaren teoria** (6); **edertasunaren teoriaren** (3); **edertasunari begira** (3); **edertasunari buruz** (5); **edertasunari buruzko** (9); **edertasunari erreparatzeko** (4); **edertasunaz eta** (11); **edertasunaz harrituta** (3); **edertasunean eta** (4); **edertasunik ez** (6); **eta edertasunak** (6); **eta edertasunaren** (11); **eta edertasunari** (3); **eta edertasunaz** (3); **eta edertasunean** (4); **eta edertasunez** (4); **haren edertasunak** (12); **haren edertasunaren** (6); **haren edertasunaz** (11); **zure edertasunaren** (3); **zure edertasunari** (3)

---

ederto *adlag* ederki.

Ederto, Jauna, bidal nazazu infernura. Mirentxu Larrañaga

- **Ederto**, zer nahi duzue? Paddy Rekalde

Gustatzen bazaizu **ederto**, ez bazaizu gustatzen sentitzen dut. Sonia Gonzalez

- **Ederto** bizi naiz hemen. Josu Landa

Kat **ederto** moldatuko litzateke ni desagertuko banintz. Sonia Gonzalez

Ederto zekien Josu barik ezingo zuela neba inoiz topatu. Xabier Montoia

Ederto jan ohi da hemen, eta neguak ez dira hain gogorrak. Urtzi Urrutikoeetxea

Schmitt dramaturgoa izateaz gain filosofia irakaslea izanik, ez da harritzekoa hain **ederto** elkartzea Dideroten figura probokatzailea eta antzerki onenaren mekanismoak, ikusi berri dugun maisulana sortzeko. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ederto (3); **dena ederto** (4); **ederto batean** (7); **ederto baten** (3); **ederto dago** (4); **ederto ezagutzen** (3); **ederto islatzen** (3); **ederto moldatuko** (3); **ederto nago** (3); **ederto pasatu** (3); **ederto zekien** (3); **eta ederto** (7); **hain ederto** (4)

edertto *adlag adkor* ederra. ik **ederxko**.

Samurgo hori azkarki samindu zen 1711-an, ziburutar aberats bat hil zelarik komentuko lurretan ehortzia izan nahi zuela erranik eta komentuari emaitza **edertto** bat eginik... Herria

edertu, eder(tu), edertzen da/du *ad* eder edo ederrago bihurtu, edergarriz hornitu.

Hitz haiek esanik, are gehiago **edertu** zitzaion begitartea, halaxe gertatzen baitzaie ongia maite eta gauzatzen dutenei, zorion eta edertasun ezaugarriak areagotuz hartara. Patxi Zubizarreta

Haren begiak argitu egin ziren iluntasunean, zabaldu, eta **edertu**, ezkutuan zuten urdina azalera ekarriz. Felipe Juaristi

Memoriaren disko gogorrean gordetakoak, aldiz, **edertu** egiten dira denborarekin. Joxerra Garzia

Agian merezi du mutu jarraitzeak, pentsatu zenuen gero, eta irri arin batek [...] **edertu** egin zizkizun aurpegiko zurbila eta bekozkoa. Hasier Etxeberria

Ez dakit nire oroimenak une hura **edertu** duen: malko bat ikusi uste izan nion, adio errateko tenorean. Aingeru Epaltza

Asiako kutsuaz **edertu** zuen pornoa. Markos Zapiain

Etxe berria egitean, arkitektoari dagokio egitura osoaz arduratzea; **edertu** eta margotu behar duenari, aldiz, apaindurez bakarrik arduratzea. Elizen arteko biblia

Nola **edertu** gure bizitza merkatuaren legeetan erori gabe, erostearen erremedio errazean erori gabe? Pako Aristi

Nik **edertu** nuen hostaia mardulez, eta inbidia zioten Edengo zuhaitz guztiek, Jainkoaren baratzeko zuhaitzek. Elizen arteko biblia

Ez dago hitz askatzailerik aldi berean lotzen ez duenik; ez dago horko bazter hori **edertu** arren hango hura desitxuratzen ez duen metaforarik. Anjel Lertxundi

Ustez sentsibilitatea dutenek gai handietara jotzen dute beren burua **edertu** nahi dutenean. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

burua edertu (3); **edertu duen** (3); **edertu egin** (4); **edertu egiten** (11); **edertu egiten dira** (3); **edertu egiten dutela** (3); **edertu eta** (9); **edertu nahi** (8); **edertua eta** (3); **edertuko du** (3); **eta edertu** (7); **eta edertua** (3); **eta ederturik** (3); **eta edertuz** (4); **nola edertu** (3)

bizitza edertzen (3); **edertzeko eta** (6); **edertzen ari** (3); **edertzen dituen** (3); **edertzen du** (3); **edertzen duen** (6); **edertzen dute** (5); **edertzen eta** (8); **edertzen zuen** (3); **eta edertzeko** (7); **eta edertzen** (8); **nola edertzen** (3)

edertzaile *izond* edertzen duena.

Argiaren **edertzailea**. Berria - Kultura

edertze *iz* eder edo ederrago bihurtzea, edergarriz hornitzea.

Alabaina ile-apaindegian mutu geratu zen eta Sybele **edertze**-institutuan doi-doia hitz egin zuen, Maritxuk begitarte berria marrazten ziola. Itxaro Borda

Edo, **edertze** hutsarekin estaltzen dugula zer esanik eza. Andoni Egaña

edertzearren *adlag* edertzeko.

Hori ere ez zitzaion batere gaizki etorriko Klementeri, bide emango baitzion Erroma **edertzearren** eta Elizari behar adinako lustrea ematearren egin berri zituen lanen gastuak kitatzeko... J.M. Olaizola "Txiliku"

edertzeke *adlag* edertu gabe.

Nagusiari egia bere mami azal garbian esatea, zuritu nahiz **edertzeke** edota begirune ustez gordetzeke. Patxi Ezkiaga

ederxko *adlag adkor* ederra. ik **edertto**.

Santiago el Real elizaren erretaula presan miretsi ondoan, eta Santiago Matamoros harrigarria agurturik, plaza zabalean harrizko aulki bat, jin bezala, hautaturik, apairu **ederxkoa** egiten dut, Errioxako xoko honen goxotasunari dagokiona. Piarres Aintziart

ederzale *izond* ederraren zalea dena.

Skribatzaile gisa, munduan izan diren erretorika-maisurik **ederzaleenen** pareko, etorri eta hitz-jario handikoa, baina baita doia eta zuzena ere, ugaria bezain zehatza. Joan Mari Irigoien

Bazter batean, harresietako txoko batean, ba omen dira persiarrek idatzitako bertso batzuk, edertasun muzinduaren oroigarri -suntsitzaile berak **ederzale**!-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Behinola arteetarako aldarrikatu zen estetika **ederzalea** jendetarren izaera sozialaren neurri bakar bilakatu dela dirudi. Berria - Kultura

Buraso eta adixkideek gogoki txalotu dituzte **ederzale** artista gazte horiek. Herria

edesle *iz* kontatzailea.

Gudu-zelaia uzten nuen ondoren, leherrak egin dituenarenak eginez, gerlari garaitzailearen fiertasun zuhurra erakutsiz, balentria- **edesle** xarmatuen bozkariozko banzaien artean. Joxan Elosegi

ediakariko *izond* garai geologikoez mintzatuz, Kanbrikoaren aurrekoa.

Lurraren historia geologikoan garai berri bat izendatu dute: **Ediakarikoa**. Berria - Gaiak

Geologoek Lurraren historian garai berri bat aurkitu dute: **Ediakarikoa**. Berria - Gaiak

edifizio *iz* eraikina.

Erran behar ote dizut zer zirrara eragin zidan Florentziak, bere karrikekin eta plazekin, eta bere **edifizio** ezin ederragoekin? Joan Mari Irigoien

Jesuitak Salamancan eraikitzen ari ziren **edifizio** bikain famatua. Joan Mari Irigoien

Diputazioaren **edifizioa** atzean utzi eta hurrengo kalean ezkerretara hartu zuten. Joxemari Iturralde

Imanolen autora igo eta harrituta begiratu diot **edifizioaren** aurpegiari, goiko solairuko bi leihoak bata bestetik aparteegi daudela iruditu zait, abereen begiak bezala. Joseba Sarrionandia

Kafetegia zegoen **edifizioraino**. Joxemari Iturralde

Eliza, **edifizio** publiko eta palazio pribatuetako atarietan. Joan Mari Irigoien

Zenbait etxe eta **edifiziotan** gizasemeak ate batetik eta emaztekiak bestetik sartu-irteten dira. Gotzon Garate

Autotik jaitsi eta harrizko **edifizio** ikaragarri hari begira geratu nintzen. Joseba Sarrionandia

Jauregiko **edifizioa**, kasik bere osoan, harlanduz egina zela, eta hiru solairu zituela. Joan Mari Irigoien

Edifizioak hiru gorputz nagusi zituela. Joan Mari Irigoien

---

edikto ik **ediktu**.

---

ediktu *(ETCn **604** agerraldi; orobat **edikto** ETCn **8** agerraldi)* **1** *iz* antzinako zenbait manu berezi edo araudiren izena; Espainian, legezko abisua. ik **dekretu**.

Enperadore erromatarrek, gure printzeek bezala, dekretu eta **ediktuen** bidez adierazten zuten beren borondatea, baina -gure printzeek egiten ez dutena- haiek onartu egiten zuten epaileek edo partikularrek beren gorabeheretan galderak egitea gutunen bidez. Iñaki Iñurrieta

Ali al Sistanik [...] fatwa edo **ediktu** bat kaleratu zuen, bozkatzen ez duena «infernura» joango dela esaten. Berria - Mundua

Ez al ziren bata bestearen ondoan etorri, senatukontsultoak, plebiszituak, pretoreen **ediktuak**, kontsulen ordenantzak, edilen araudiak, juriskontsultoen erantzun edo erabakiak, pragmatika-berronespenak, erreskriptuak, **ediktuak** eta enperadoreen nobelak? Andres Urrutia

Karakalaren **ediktua** K.o. Iñaki Mendiguren

212an promulgatu ondoren, Erromatar inperioko gizonezko aske guztiak, salbuespen txiki-txikiekin, erromatar hiritar izan ziren, baina, hala ere, ondorengo mendeko politika- eta gizarte-iraultza behar izan zen bizitzako errealitateak legearekin bat etortzeko.Haiek Mathalasen aldekoak, eta hauek errege Luis XIV.aren aldekoak, zeinak, **ediktu** bat bitarteko, Zuberoako herri-lurrak salgai jarri baitzituen. Iñaki Mendiguren

Udaberri hartan ere, beraz, Inkisizioneko komisarioak igandeko mezan irakurri zuen **ediktu** hura. Joan Mari Irigoien

1666ko **ediktua**, ezkontzen alde. Iñaki Iñurrieta

1724ko maiatzaren 24ko **ediktua**, Fleury kardinalaren eskariz argitaratua.Ofizio Sainduaren manuz eta aginduz, eta jaun inkisidorearen trabailuen araberako maiztasunez [...] **ediktu** bat zabaltzen zen -eta hala egiten da oraino-, zeinean eliztarrei jakinarazten baitzitzaien, bertze zeregin batzuen artean, urtean behin konfesatzeko eta komunionea egiteko obligazinoa. Juan Martin Elexpuru

Ediktuak eta dekretuak obeditu dituena barkatua izan dela, eta, bestetik, hori sinetsi gabe, obeditzen ez duenari zigorra jartzen zaiola. Esteban Antxustegi

Printze beraren beste konstituzio bat dugu, **ediktu** hori aipatzen duena, eta prezepzioen gehiegikeria guztiak puntuz puntu zuzentzen dituena. Iñaki Iñurrieta

Usadioen arabera gobernatutako eskualde frantziarren eta zuzenbide idatziaren arabera gobernatuen arteko bereizketa egina zen jadanik Pistesko **ediktuaren** denboran. Iñaki Iñurrieta

Montmartren liburu-saltzaile izateak ez du antzik, noski, Tolosako legebiltzarreko kide, Auzitegi Goreneko kargudun, eta **Ediktuen** Ganberako komisario izatearen aldean. Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Izan ere, Sultanak **ediktu** anker bat emana zuen, kristau baten burua zekarrena urrezko txanpon batez sarituko zuela aginduz. Askoren artean

Maizterren egoeraz urrikaldurik, uko egin zion alokairua igotzeari, **ediktu** militar batek horretara ahalbidetzen bazuen ere. Patxi Zubizarreta

«Aspaldi ez dela, udaletik musika kaperaren estatutuak eskatu zizkidaten» gogoratu du zuzendariak, «eta latinezko **ediktu** hauxe eraman nien». Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Alferrikoak izan dira dueloan aritzen direnen aurkako heriotza **ediktuak**; ez dute ohitura hau moztea lortu. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ediktu bat** (3); **pistesko ediktuak** (3)

---

edil *iz* antzinako Erroman, hiriaren horniketaz eta zaintzaz arduratzen zen magistratua.

Ez al ziren bata bestearen ondoan etorri, senatukontsultoak, plebiszituak, pretoreen ediktuak, kontsulen ordenantzak, **edilen** araudiak, juriskontsultoen erantzun edo erabakiak, pragmatika-berronespenak, erreskriptuak, ediktuak eta enperadoreen nobelak? Andres Urrutia

Erregina hura, hainbeste erregeren alaba, arreba eta ama, egun ere oraindik ospetsua **edil** edo prokontsul erromatar baten duin diren obrengatik. Iñaki Iñurrieta

Berdin Lazedemonian ere, pareta batzuetatik adreiluak ebakiz atera dira pinturak eta gero, egurrezko markoetan jarriz, kuriara eraman izan dituzte apaingarri bezala jartzeko, Varro eta Murena **edil** ziren garaian. Santiago Iruretagoiena

---

edipiko *izond* Ediporen konplexuarena, Ediporen konplexuari dagokiona.

Botikarien familia **edipiko** eta ospetsuaren zehar-tribu hori. Jon Alonso

-Beharbada harreman **edipikoa** dugu donostiarrok gure hiri polit horrekin. Ramon Saizarbitoria

Bost edo hamaika, batek daki, hor ez baitatoz zientzialariak bat, kontuan harturik bere ama **edipikoak** sei urte zituela gure bildotsa munduratu zenean eta bildots hau bitasunaren misterioaren erakusgarria dela. Pello Salaburu

---

ediren *(ETCn **431** agerraldi; orobat **eriden** g.er.)*, edireten da/du *ad* aurkitu. ik **idoro**.

Polizia berehalaxe etorri zen Franken dendara eta erailea atzemateko aztarna egokia **ediren** zuen. Gotzon Garate

Eskolastikaren zoko-moko guztiak **ediren** nahi zituen, eta den-denak barneratu. Aingeru Epaltza

Eta nork iguriki zezakeen ezen Mundu Zaharrean deus berririk **edirenen** nuela, nola **ediren** bainuen, zeren, Piarres Oihartzabal kapitainak aitzinatu zidan bezala, arras aldaturik **ediren** bainuen geure ama, nik hain beti-berdin eta hain beti-bat ezagutu izan nuena. Joan Mari Irigoien

Logelan **ediren** ninduen, ohe gainean etzanik, begiak zabalik. Joan Mari Irigoien

Hor haatik Xarlesek ez zuen berriz atzetik hartua izatea hain maite zuen beltzarana nehoiz **ediren**. Itxaro Borda

Baina erran beharra dut ezen, hatsarrean bederen, haserre **ediren** nuela osaba Joanikot. Joan Mari Irigoien

Gutxinakako frogen arrakastak hegoak ematen zizkion itxaropenari: bizkor, kloruroa **ediren** (inbentarioan "kloruro demonio" izenez zetorren), Xehetze saileko buruarekin ados jarri, [...]. Juan Garzia

Azken batean, Tartasen hitzetan, herioaren errautsa, hiltzeaz oroitzea, zeruko eta lurreko barberuek **ediren** lezaketen erremediorik hoberena. Imanol Zurutuza

Kontzilioaren aitzinetiko teologia zen, guti gora-behera Belapeire baten kateximan geroztik **ediren** dügüna. Herria

Begiak zabalik nituen arren eta belarriak are zabalago, mirakuluak ez zuen, bertzeetan bezala, eneganako bidea **ediren**. Joan Mari Irigoien

Nafar prehistoria-zale tanda batek harri zahar bat **ediren** du; arkitu harriari *piedra bissardun* izena eman diote. Iñaki Arranz

En torno al casticismo-n (1895), [...] *Volksgeist* kontzeptuaren argiketa saio berri bat **edireten** dugu. Joxe Azurmendi

Zinez ote dago beirazko ontzi horretan ene etorkizuna, jaun André, eta zinez **edirenen** ote dut, halatan, neure azken eguna, edo azken egunak **edirenen** ote nau ni? Joan Mari Irigoien

Eta Italia baino eskola hoberik ez diat nehon **edirenen**. Joan Mari Irigoien

Erdi eroa nintzen gaur arte; hemendik hara, ene erokeriaren osotasunak ez du dudarik **edirengo**! Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat edireiten (3); **bat ediren** (8); **baten edireiteko** (3); **berean ediren** (3); **bidea ediren** (3); **edireiten baitzuen** (3); **ediren bainuen** (7); **ediren baitzuen** (5); **ediren genuen** (5); **ediren nahi** (3); **ediren nuela** (4); **ediren nuen** (9); **ediren nuen osaba** (3); **ediren zuela** (3); **ediren zuen** (6); **ediren zuen bere** (3); **ediren zuten** (3); **gabe ediren** (4); **han berean ediren** (3); **non ediren** (4)

---

editaje *iz* argitaratzea.

Joan-etorri gehiago eskatzen du, aukeraketa-lana, **editajea**, aurkezpena... baina errealitatearen isla zintzoagoa da telebista-platoan gerta daitekeen edozer baino. Andoni Egaña

---

editaldari *iz* argitaldaria.

Offredo kasetariaren aintzin solasekin (Cana **Editaldaria**) aipatzen ditu 159 orrialdetan laburzki: [...]. Herria

---

editatu *(ETCn **1.477** agerraldi)*, edita, editatzen **1** du *ad* argitaratu; bideo eta kidekoetan, muntatze lana egin.

Kazetariak informazioa biltzen, aztertzen, interpretatzen, **editatzen** eta zabaltzen egiten duen lana oso garrantzitsua da. Berria - Gaiak

"Justine-ren egilearen lan postumoa" zela esanez **editatu** zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jakin ezazu gure herriko apeza izan zena, egun arreba gazteagana Arrasaten erretiratuta bere memoriak azken modeloko Macintosh batean orrazten eta QuarkXPress programan **editatzen** ari dena, ez zela egon Francoren ongi-etorrian. Koldo Izagirre

Ordenagailua baliatuta orduerdiko irratsaioa **editatzen** eta grabatzen irakatsi zuten atzo UEUk antolatutako Kazetaritza Saileko ikastaroetan. Berria - Euskal Herria

Askotan frustrazioa **editatzean** dator, grabatutako material guztia erabili ezin duzula ohartzean; horixe gertatu zitzaigun Supertramps-ekin. Berria - Kultura

XMLri buruzko ikastaroan, ikasleek XML dokumentuak sortzen eta **editatzen** ikasi zuten. Berria - Euskal Herria

Esan nahi dut ez dagoela ezta negatiborik ere atzean, orijinalak direla, eta, beraz, ezin direla kopiatu edo **editatu**, argazki batekin egin daitekeen bezala. Berria - Kultura

Hortaz, nire ikuslea pantaila aurrean dagoena baino gehiago, nirekin bideoan parte hartu duen pertsona da, nirekin **editatu**, antzeztu edo lan egin duena. Berria - Kultura

Lan egiteko modua grabatu ahala **editatzea** da. Berria - Kultura

Shakirov dimititzera behartu zuen herenegun kazeta **editatzen** duen enpresak, larunbatean «oso argazki gogorrak» argitaratu zituela argudiatuta. Berria - Mundua

"Hildako" literatura klasiko batetik bizirik iraundako lanak bildu, **editatu**, anotatu eta argitaratzeko zeregin honetan, [...]. Iñaki Mendiguren

Argitaletxe batek behar luke zaindu eta mimatu **editatzen** duen bere idazlea. Ana Urkiza

2 (era burutua izenondo gisa)

Horrela izanik, ekintza fisiko ikusgarriak, musika ahalmentsua, zuzenean hartutako bideo-irudiak, bideo-irudi **editatuak**, makina handiak, ura, sua, gorputz-fluidoak eta beste elementu batzuen sinbologia erabiltzen dituzte ikusleak buru-belarri sartzeko haiek proposatutako ekintza dramatikoan. Berria - Kultura

---

editatze *iz* argitaratzea; muntatze lana egitea.

Argazkiak egiteaz eta **editatzeaz** Gema Arrugaeta arduratu zen. Patxi Zubizarreta

---

editore **1** *iz* editatze lana egiten duen pertsona.

Editorea bitartekaria da, zubia da idazlearen eta irakurlearen artean. Ana Urkiza

Argitaletxeko **editorea**, nire lehen irakurlea denez, oso kritikoa izaten baita. Ana Urkiza

Richard Watson Gilder (1844-1909) poeta eta aldizkari zenbaiten **editorea** izan zen. Xabier Olarra

Solomon jauna albisteen **editorea** zen, eta metodista. Koro Navarro

Gure aitak *Whit Burnett Story* aldizkariaren **editoreari** erakutsi zion kontakizuna. Ramon Etxezarreta

The Lancet zientzia aldizkariko **editorearen** ustez, ikerketa hori bihotzekoen arrisku faktoreen inguruan egin den lanik mardulena da. Berria - Gaiak

*The American New York*eko egunkariko **editoreak** badu alproja zen garaiko oroitzapena, ez ordea gertaera horrexena. Xabier Olarra

Rae Jeffs **editoreak** zintan harturiko Behanen narrazioari egundoko umorea dario, eta batez ere, bere-berea duen distira dauka. Pablo Sastre

Euskal **Editoreen** Elkartearen "Klasikoak" bildumarako paratutako edizioan. Martin Anso

2 (izenondoekin)

Editore handienek modu korporatiboan erantzun dute oraingoz. Berria - Gaiak

Euskaraz nahiz alemanez, balada luzeegia zuan, **editore** zekenen arrazoi materialak eta etxekoandre koipetsuetatik libratzeko arrazoi espiritualak ere barne. Anjel Lertxundi

Peter hura, denborarekin, **editore** ospetsu bihurtu zen. Julen Gabiria

Eta egileak berak ere, **editore** lagunak bezala, txinparta horiek ditu gustukoen. Joxerra Garzia

Nobela bat polonierara itzuli diodan **editore** zabor horren dirua da. Anton Garikano

Marcel Jullian **editore** eta zinema gidoilari frantziarra hil da. Berria - Kultura

Miami Herald egunkariak Latinoamerikarako egiten duen edizioko **editore** ohi Don Bohningen iritzia da. Berria - Harian

Editore Nagusia: Hugo Chavez Frias. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Vidalek berak egiten bide zituen **editore** lanak. Harkaitz Cano

Maria Jose Azurmendi eta Iñaki Martinez de Luna Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak aritu dira **editore** lanetan. Berria - Euskal Herria

Mariasun Landak Tegucigalpako (Honduras) Liburu Azokan parte hartuko du, Espainiako **Editore** Gremioen Federazioak gonbidatuta. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskuzabaltasun Henry Ward Beecher (1813-87) elizgizona, egunkari-**editorea** eta abolizionista zen, AB-k maiz eraso egin ziona. Xabier Olarra

Badakit liburu **editoreari** (idazlearen lana hartu eta dendarako bidean honi laguntzen dion izaki barratsu hori) nola estutzen zaizkion ezpainak liburu berria moldiztegitik jaso, eta gainbegiratua ematen ari zaiola, makurra aurkitzen duenean. Iñigo Aranbarri

Erresuma Batuko bigarren aldizkari **editore** handienak. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitor aranaren editorea (3); **aranaren editorea** (4); **argitaletxeko editorea** (3); **argitaletxeko editoreak** (6); **argitaletxeko editorearen** (3); **argitaletxeko editorearen ustez** (3); **disketxeko editorea** (4); **du editoreak** (4); **editore batek** (6); **editore batzuk** (3); **editore eta** (8); **editore izan** (3); **editorea da** (3); **editorea eta** (3); **editorea izan** (3); **editorea izan zen** (3); **editorea zen** (3); **editoreak bere** (3); **editoreak ere** (3); **editoreak eta** (3); **editorearen arabera** (6); **editorearen hitzetan** (3); **editorearen ustez** (9); **elizegi editoreak** (6); **elkarreko editoreak** (4); **elkarreko editorearen** (4); **eta editore** (9); **eta editorea** (5); **eta editoreak** (9); **euskal editorea** (4); **idazle eta editore** (3); **idazle eta editoreak** (5); **mendiguren elizegi editoreak** (6); **susako editoreak** (3); **txalapartako editoreak** (3)

autoreen eta editoreen (5); **dute editoreek** (4); **editoreek eta** (7); **editoreek eta argitaletxeek** (6); **editoreen elkartea** (8); **editoreen elkarteak** (21); **editoreen elkartearen** (7); **editoreen elkarteko** (11); **editoreen elkarteko lehendakaria** (3); **editoreen ustez** (4); **eta editoreen** (8); **eta euskadiko editoreen** (5); **euskadiko editoreen** (9); **euskadiko editoreen elkarteak** (3); **euskal editoreek** (3); **euskal editoreen** (28); **euskal editoreen elkartea** (7); **euskal editoreen elkarteak** (11); **euskal editoreen elkartearen** (3); **euskal editoreen elkarteko** (7); **gimenez euskal editoreen** (3)

---

editorial *(118 agerraldi, 28 liburu eta 52 artikulutan; ETCn 3.253 agerraldi; cf **argitaletxe** 1.384 agerraldi, 311 liburu eta 707 artikulutan, eta **argitaldari** g.er.)* **1** *iz* argitaletxea, argitaldaria.

1999an Aralar **editorialak** argitaratu zuen 1936-37 gerrari buruzko entziklopedia ederrean datu horiek baino ez dira ageri aitaren anaiaz. Koldo Izagirre

Txalaparta **editorialaren** euskarazko liburuen editore izan da azken 5 urteetan. Berria - Euskal Herria

Balkan Txiki **editorialak** eraikuntza aski handia betetzen zuenez, iritsi eta hamar minutura bukatu zitzaien ura. Jon Alonso

Zola 1858an Parisa itzuli zen, eta, bohemian eta pobrezian bolada bat igaro ondoren, Hachette **editorialean** hasi zen lanean. Karlos Zabala

Editorialaren eraikuntzan sartu ziren lehenak haiek izan ziren. Jon Alonso

Frantses hiritartasuna duen euskal idazle batek badaki egoera konplexu batean bizi dela: lehenik, euskal komunitate iberikoan den euskarazko literatur sistema kanonizatuaren periferian; bigarrenik, frantses literatur sistema zentraletik, Pariseko **editorial** handiak beren idazle sareekin, osoki eta definitiboki kanpo den basamortu batean. Ana Urkiza

Saltzea baino gehiago «merkatuan sartzea» da **editorialen** asmoa. Berria - Kultura

2 egunkari edo aldizkari batean sinadurarik gabe argitaratzen den artikulua, zuzendaritzaren iritzia adierazten duena.

Biharamunean, informazioa balorazio bilakatu zitzaion irakurleari: "Méthode de nazis" Eric Fottorino-k Le Monde-n; "Le civisme en berne", egunkari beraren **editorialak**. Iñigo Aranbarri

Nature aldizkariak ere luze hitz egiten du gaiaz aste honetako **editorialetan**, baina zezenari adarretatik erabat heldu gabe. Berria - Gaiak

Kazetaria zen eta naziak goratzeko idazten zituen bere egunkariaren **editorialak**. Xabier Montoia

Gobernuaren aldeko egunkariak **editorialean** aipatu duenez, Konstituzio berriak «edozein desadostasun gainditzeko ahalmena dakar». Berria - Mundua

• **3** *izond* egunkari edo aldizkari bateko editorialari dagokiona.

Azterketa horretan, nabarmen gelditu zen egunkarien ildo **editorialak** eta beren irakurleen joerak nahiko autonomoak direla. Txema Ramirez de la Piscina

Erredakzioko Kontseiluak kritikatu egin du ildo **editoriala**, manipulatzailetzat joz. Berria - Mundua

Trukean Fujimori presidentearen aldeko lerro **editoriala** egitea eskatu zien aholkulariak. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

editorialak eta (3); **en editoriala** (3); **ildo editoriala** (8)

---

editorialgile *iz* egunkari edo aldizkari bateko editorialak idazten dituen pertsona. ik **editorialista**.

Erasoen ondorioz Erresuma Batuan zein beste herrialde batzuetan bizi diren musulmanen eta arabiarren kontrako jazarpena areago daitekeela ohartarazi dute, eta horren aurka neurriak hartzeko eskatu zieten **editorialgileek** zein apaiz musulmanek agintariei. Berria - Harian

Biblioteca aldizkariaren editorealean, irakurzaletasuna pizteko trikimailurik onena liburuak ezkutatzea dela irakurri nuen; hau da, galarazitako gauzak erakargarriago egiten zaizkigula defendatzen zuen **editorialgileak**, eta, beraz, apalak hustu eta liburuak armairuetan sartu behar direla. Berria - Kultura

Europako agintari politikoen adosteko gaitasun eza gaitzesterakoan bat etorri dira Europako hedabideetako **editorialgileak**. Berria - Harian

---

editorialgintza *iz* editorialek argitaratzen dituzten liburuen kopurua.

Dozena bat editorialek urteko 10 eta 20 artean ateratzen du, baina gero asko bakantzen da **editorialgintza** 20 eta 100 bitartean (9 soilik). Berria - Kultura

---

editorialista *iz* editorialgilea.

urrunago jo zuen El Pais-eko **editorialistak** atzo, ETAren adierazpenak PSOEren gobernuarekin hitzartua izatearen traza duela idaztean. Berria - Harian

---

editorializatu *iz* egunkari edo aldizkari batean editorial gisa publikatu.

Komunikabide horiek ongi ordaindutako aktoreen esku daude salbuespenak salbuespen, eta ez dute inolako lotsarik informazioa batere eskrupulurik gabe **editorializatzeko**. Berria - Euskal Herria

---

edizino ik **edizio**.

---

edizio *(585 agerraldi, 79 liburu eta 280 artikulutan; ETCn 3.253 agerraldi; orobat **edizione** g.er. eta **edizino** g.er.; cf **argitalpen** 668 agerraldi, 73 liburu eta 324 artikulutan; ETCn 12.849 agerraldi)* **1** *iz* argitalpena.

Ten Books of Architecture **edizio** ingelesa, I.D Rowland-en itzulpenarekin eta Th. Noble-ren komentario eta ilustrazioekin egindakoa, Cambridge, 1999. Santiago Iruretagoiena

Itzulpen honen argitaratzaileak "Harleian manuscript, 2767" izeneko iturria aukeratu du [...] Frank Grangerrek ezagutzen ziren guztien arteko zaharrenekotzat hartzen zuena, eta Erdi Aroko beste eskuizkribu askoren abiapuntutzat ematen zuena, eta 1931. urtean bi hizkuntzetako **edizioan** (latina-ingelesa) argitaratu zuena. Santiago Iruretagoiena

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, **edizio** honen Copyright-jabeen baimenik gabe. Bernardo Atxaga

Larunbat gau batez, egunkariaren **edizioa** ixteko lanetan nengoela, erredakziora agertu zitzaidan negar-intzirika. Aingeru Epaltza

Hiru aleko **edizioa**, hain zuzen. Bernardo Atxaga

Beraz, mezu-hartzaileak deskodetze lanerako liburu jakin horren **edizio** bereko kopia bat beharko luke. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lan horren fruiturik onenak 1904an argitaraturiko bi **edizio** kritikoak izan ziren, Leonard Lemmens-ena eta Heinrich Boehmer-ena. Askoren artean

Tamalgarria zen ikustea zenbait narrazio bikain ahanzturaren basamortuan galdurik geratzen zirela, saria irabazi ostean tirada urriko eta banaketa eskaseko **edizio** ziztrin batean argitaratuak izan zirelako. Berria - Kultura

Igerabideren eta Javi Cilleroren liburu banaren **edizio** elebiduna atera du Ateneak. Berria - Kultura

Aurreko mendeetako **edizio** faksimileak. Santiago Iruretagoiena

Egunkari honen **edizio** digitalean, Irakeko albiste bat. Iñigo Aranbarri

Edizio elektronikoaz gain, Adbusters fundazioak paperezko aldizkaria ere kaleratzen du. Txema Ramirez de la Piscina

Ildo horri jarraitzen dion ereduan sartu behar da jadanik XIX. mendea hasi ondoren azaldutako **edizio** ilustratuen kasua. Santiago Iruretagoiena

Argumentua ezagutu ondoren, Frantzian nekez argitaratuta egongo dela pentsatu dut; **edizio** klandestino batean, asko jota. Iban Zaldua

Denetan gogokoena *Directorium Inquisitorium* obraren oktabako **edizio** txiki bat genuen, Eymeric de Gironne domingotarrarena. Koro Navarro

Liburu honen bigarren **edizio** berritua argitaratua dago. Isabel Arrigain

1939koa da; liburu honek izandako jatorrizko lehen **edizioko** ale bat da, hortaz. Aitor Arana

Luxuzko **edizioa** zunan, hamazazpigarren mendekoa. Anton Garikano

Laster Carverren ipuin liburu guztiak erosteari ekin zion, sakelerako **edizio** merke batean. Iban Zaldua

Eta ez liburuak bakarrik, baizik eta lehenbiziko **edizioak**, are lehenbiziko **edizio** sinatuak ere. Oskar Arana

Antzeko pasartea irakur dakioke Bernardo Atxagari *Post tenebras spero lucem* ipuinaren aurreneko **edizioan**, 1982an Jakin aldizkarian argitaratu zen hartan. Iñigo Aranbarri

Asteartean, albistearen jarraipenik ez paperezko **edizioan**. Iñigo Aranbarri

Arantzazuko Frantziskotar Probintziak eraginda bertako Itzultzaile-taldeak landu du "Frantziskotar Iturrien" euskarazko **edizioa**. Askoren artean

Gure itzulpenak Kajetan Esser-en 2. **edizioa** jarraitzen du. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Edizio-zuzendariak. Askoren artean

· On line **edizioa** bestea baino laburragoa da. Txema Ramirez de la Piscina

4 argitalpen batean publikatzen diren aleen multzoa.

Neuk erosiko dut **edizio** guztia. Iñigo Aranbarri

Edizioa erabat suntsituko bagenu ere. Jon Alonso

5 (diskoena)

Diskoaren lehen **edizioan**, iazko abenduan Atarrabian Barricadari egin zitzaion omenaldi kontzertuari dagokion DVDa ere aterako da. Berria - Kultura

6 irrati edo telebista saio baten egun bateko emisioetako bakoitza.

Lasai ederrean eman zuen berria esplikerrak, eta behin eta berriro errepikatu ondorengo **edizioetan**. Iñigo Aranbarri

7 (egunkarietan)

Asahi, Mainichi, Yomiuri eta Nihon Keizai egunkari japoniarrek enpresa jabearen «arduragabekeria» salatu zuten atzo, goizeko **edizioetan**. Berria - Gaiak

*Berria*ko webguneko **edizio** jarraituak Ipar Euskal Herriko hauteskundeen emaitzak emanen ditu gaur arratsean. Berria - Euskal Herria

El Mundo egunkariak epaia osorik argitaratu beharko du **edizio** guztietan, digitala barne, eta zuzenketaren aipamena egin beharko du lehenengo orrialdean. Berria - Euskal Herria

8 periodikoki egiten den jarduera baten gauzatze bakoitza.

Sagarno egunak bosgarren **edizioa** zuen aurten. Herria

EAEko Futbol Federazioak antolatu du, eta sasoi honetakoa lehen **edizioa** du. Berria - Kirola

Herri Urrats 2003. **edizioa** uste baino arrakastatsuagoa izan da: 75000-80000 presunek berriz ere Euskararekiko duten atxikimendua erakutsi baitigute Ikastoletako festa horretan. Herria

Aurreko bi **edizioetan**, enpresen mugikortasuna eta lehiakortasuna izan zuten hizpide, baina aurtengoan salmenten gako nagusietariko bati eutsi diote, bezeroari, alegia. Berria - Ekonomia

Aurreko bi **edizioetan**, enpresen mugikortasuna eta lehiakortasuna izan zuten hizpide, baina aurtengoan salmenten gako nagusietariko bati eutsi diote, bezeroari, alegia. Berria - Ekonomia

Lehen lasterketa larunbatean izango du Belokik, Getxoko zirkuituko 59. **edizioan**. Berria - Kirola

Festibal horren 10. **edizioa** Mendiko Landan, jazko gune berean, iraganen da uztailaren 1, 2 eta 3an. Herria

1999-ko lehen **edizioak** arrakasta pollita ukan zuen: 5000 ikusliarrek 26 artista euskaldunen obren ezagutza egin zuten. Herria

Sabino Arana Fundazioak eman ditu XVII. **edizioko** sariak. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste edizio (8); **beste edizio bat** (3); **bi edizio** (3); **bigarren edizio** (8); **bigarren edizio bat** (4); **du edizio** (5); **edizio bat** (13); **edizio berri** (9); **edizio berri bat** (3); **edizio berria** (6); **edizio berriak** (3); **edizio berritua** (3); **edizio digitala** (3); **edizio digitalak** (4); **edizio digitalean** (4); **edizio elektronikoa** (4); **edizio elektronikoaren** (3); **edizio hau** (7); **edizio honen** (5); **edizio honen copyright** (3); **edizio honetan** (8); **edizio honetarako** (4); **edizio horretan** (4); **edizio izan** (3); **edizio kritiko** (5); **edizio kritikoa** (21); **edizio kritikoak** (8); **edizio zahar** (4); **en edizio** (4); **eta edizio** (11); **gaztelaniazko edizio** (4); **guztien edizio kritikoa** (3); **hiru edizio** (3); **lanen edizio** (3); **lehen edizio** (9); **liburuaren edizio** (4); **obraren edizio** (3); **ren edizio** (7)

atzoko edizioan (3); **aurreko edizioetan** (3); **aurtengo edizioa** (4); **aurtengo edizioan** (6); **azken edizioa** (3); **bigarren edizioa** (13); **bigarren edizioa izango** (3); **bigarren edizioak** (3); **bosgarren edizioa** (3); **edizioa da** (8); **edizioa eta** (4); **edizioa izango** (5); **edizioaren ale** (3); **hamargarren edizioa** (4); **hirugarren edizioa** (6); **hirugarren edizioan** (4); **laugarren edizioa** (5); **lehen edizioa** (9); **lehen edizioan** (4)

---

ediziogile *iz* edizioa egiten duena.

Sarrera eta **ediziogilea**: Adolfo Arejita. Berria - Kultura

---

edizione ik **edizio**.

---

edo zenbait hitz, gehienetan bi, sintagma edo perpaus lotzen dituen juntagaila. ik**ala**. (ikus beheko konbinatorian edo juntagailuaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a edo (21); **aita edo** (47); **aita edo ama** (23); **aldatu edo** (27); **alde batera edo** (31); **alde edo** (85); **alde edo kontra** (50); **aldera edo** (28); **alderdi edo** (32); **aldez edo** (79); **aldez edo moldez** (77); **ama edo** (39); **amaieran edo** (24); **anaia edo** (21); **arazo edo** (22); **arte edo** (47); **artean edo** (36); **asko edo** (21); **astean behin edo** (30); **aurrera edo** (20); **aurretik edo** (28); **bada edo** (32); **bai edo** (65); **bai edo ez** (49); **baietz edo** (20); **bakarrik edo** (38); **bat edo** (2010); **bat edo bat** (20); **bat edo batzuk** (20); **bat edo bertze** (51); **bat edo beste** (776); **bat edo bestea** (52); **bat edo bi** (171); **bat edo gehiago** (25); **bata edo** (42); **bata edo bestea** (34); **batean edo** (347); **batean edo bestean** (182); **batek edo** (164); **batek edo bestek** (36); **batekin edo** (73); **bateko edo** (52); **bateko edo besteko** (37); **baten edo** (192); **baten edo bestearen** (26); **batengatik edo** (22); **batera edo** (262); **batera edo bestera** (202); **baterako edo** (22); **batetik edo** (54); **batetik edo bestetik** (25); **batez edo** (84); **bati edo** (65); **batzuk edo** (34); **behar edo** (20); **behin edo** (215); **behin edo behin** (66); **behin edo bitan** (41); **beldurrez edo** (33); **bera edo** (43); **berak edo** (27); **berean edo** (32); **berri edo**

(20); **bertan edo** (26); **beste zer edo** (22); **bezala edo** (115); **bi edo** (443); **bi edo hiru** (382); **bide edo** (20); **bidez edo** (37); **bigarren edo** (52); **bigarren edo hirugarren** (47); **bihar edo** (70); **bihar edo etzi** (64); **bila edo** (25); **bizi edo** (43); **bost edo** (116); **bost edo sei** (84); **buruan edo** (32); **buruz edo** (32); **da edo** (151); **dagoen edo** (53); **dagoen edo ez** (34); **daitekeen edo** (26); **dela edo** (87); **delako edo** (27); **den edo** (347); **den edo ez** (216); **dena edo** (29); **denean edo** (24); **dira edo** (82); **direla edo** (32); **diren edo** (139); **diren edo ez** (62); **direnak edo** (24); **ditu edo** (24); **dituen edo** (42); **dituen edo ez** (25); **dituzte edo** (20); **dituzten edo** (32); **du edo** (53); **dudan edo** (20); **duela edo** (25); **duen edo** (247); **duen edo ez** (178); **duena edo** (30); **dugu edo** (24); **dugun edo** (23); **dut edo** (25); **dute edo** (49); **duten edo** (117); **duten edo ez** (76); **duzu edo** (20)

edo a (22); **edo agian** (186); **edo ahal** (26); **edo aita** (43); **edo akaso** (21); **edo alaba** (50); **edo alde** (38); **edo alderantziz** (86); **edo alderdi** (28); **edo ama** (55); **edo amak** (22); **edo antzeko** (197); **edo antzeko zerbait** (72); **edo arazo** (23); **edo are** (108); **edo argi** (21); **edo arte** (22); **edo aski** (41); **edo asko** (30); **edo atzera** (48); **edo aurrera** (24); **edo auskalo** (76); **edo azken** (41); **edo bai** (81); **edo baita** (59); **edo bakarrik** (23); **edo barne** (20); **edo bat** (79); **edo batek** (24); **edo batere** (52); **edo batere ez** (29); **edo batzuk** (30); **edo bederatzi** (26); **edo bederen** (153); **edo behar** (71); **edo beharbada** (102); **edo behera** (22); **edo behin** (200); **edo behintzat** (58); **edo bera** (35); **edo berak** (45); **edo berandu** (41); **edo beranduago** (34); **edo berant** (51); **edo berantxago** (26); **edo berdin** (238); **edo bere** (348); **edo beren** (87); **edo berrogei** (29); **edo berrogeita** (21); **edo bertan** (35); **edo bertze** (147); **edo beste** (1748); **edo beste bat** (24); **edo beste edozein** (117); **edo beste edozer** (21); **edo beste egin** (22); **edo beste era** (21); **edo beste ere** (46); **edo beste izan** (27); **edo beste zerbait** (32); **edo bestea** (133); **edo besteak** (42); **edo bestean** (193); **edo bestearen** (50); **edo bestek** (41); **edo besteko** (39); **edo bestela** (332); **edo bestelako** (131); **edo bestenaz** (31); **edo bestera** (208); **edo besteren** (50); **edo besterik** (29); **edo besterik gabe** (24); **edo bestetik** (31); **edo bestez** (20); **edo beti** (20); **edo betiko** (22); **edo bi** (332); **edo biak** (53); **edo biak batera** (20); **edo bigarren** (49); **edo bihar** (37); **edo birritan** (20); **edo bitan** (72); **edo bizi** (83); **edo biziki** (22); **edo biziko** (97); **edo bizikoa** (38); **edo bizirik** (20); **edo bizitza** (20); **edo bost** (155); **edo burua** (22); **edo dela** (28); **edo dena** (240); **edo dena delako** (74); **edo dena delakoa** (66); **edo dena delakoak** (27); **edo denbora** (38); **edo diru** (29)

edo edozein (35); **edo egia** (22); **edo egin** (109); **edo egiten** (61); **edo egoera** (20); **edo egon** (28); **edo egun** (35); **edo ehun** (31); **edo ekintza** (25); **edo ekonomia** (21); **edo emakume** (44); **edo eman** (21); **edo emazte** (24); **edo enpresa** (23); **edo entzun** (31); **edo erabat** (20); **edo erakunde** (22); **edo erdi** (65); **edo ere** (28); **edo esan** (45); **edo esaten** (32); **edo eskola** (21); **edo esku** (24); **edo espainiako** (43); **edo estatu** (29); **edo eta** (160); **edo etxe** (37); **edo etxean** (26); **edo etxeko** (25); **edo etxetik** (22); **edo etzi** (73); **edo euren** (26); **edo europako** (23); **edo euskal** (116); **edo euskaraz** (21); **edo ez** (2597); **edo ez da** (50); **edo ez dakit** (46); **edo ez du** (27); **edo ez dute** (22); **edo ez erabaki** (49); **edo ez erabakiko** (21); **edo ez erabakitzeko** (76); **edo ez hain** (29); **edo ez ikusteko** (20); **edo ez izan** (26); **edo ez jakiteko** (25); **edo ez zuen** (25); **edo ezer** (37); **edo ezer ez** (20); **edo ezetz** (20); **edo ezin** (49); **edo fisikari** (20); **edo fisikari horrenak** (20); **edo frantsesa** (20); **edo frantsesez** (37); **edo gabe** (54); **edo gai** (25); **edo gaizki** (75); **edo galdu** (34); **edo garai** (20); **edo gau** (22); **edo gauza** (57); **edo gauzak** (21); **edo gehiago** (271); **edo gehixago** (22); **edo geroago** (113); **edo geroxeago** (39); **edo gezurra** (22); **edo gisako** (23); **edo giza** (37); **edo gizarte** (61); **edo gizon** (45); **edo goi** (22); **edo gure** (116); **edo gutxi** (36); **edo gutxiago** (91); **edo gutxienez** (78)

edo haiek (22); **edo haien** (76); **edo hain** (29); **edo hala** (699); **edo halako** (144); **edo halako zerbait** (26); **edo halan** (26); **edo hamabi** (28); **edo hamabost** (39); **edo hamar** (75); **edo han** (66); **edo handik** (66); **edo hara** (25); **edo haren** (181); **edo hari** (35); **edo harri** (23); **edo hartzen** (22); **edo hau** (20); **edo haur** (21); **edo hego** (21); **edo hemen** (120); **edo hemendik** (37); **edo hemengo** (22); **edo heriotza** (29); **edo herri** (63); **edo herriko** (35); **edo hil** (74); **edo hilik** (21); **edo hiltzen** (23); **edo hiri** (26); **edo hiru** (450); **edo hiru aldiz** (35); **edo hiru urte** (20); **edo hirugarren** (59); **edo hitz** (80); **edo hobe** (41); **edo hobe esanda** (22); **edo hobeki** (90); **edo hobeki erran** (28); **edo hobeto** (80); **edo hobeto esanda** (46); **edo hogei** (40); **edo hogeita** (58); **edo hogeita hamar** (31); **edo hola** (91); **edo holako** (87); **edo holako zerbait** (56); **edo honen** (28); **edo hor** (31); **edo hori** (87); **edo horien** (24); **edo horrela** (23); **edo horrelako** (82); **edo horrelako zerbait** (50); **edo horren** (38); **edo hura** (104)

edo ia (97); **edo ideia** (35); **edo ikusi** (26); **edo inoiz** (26); **edo ipar** (25); **edo ipuin** (26); **edo izan** (126); **edo izango** (36); **edo izen** (23); **edo jainkoaren** (32); **edo jakin** (23); **edo kalean** (21); **edo kalte** (24); **edo kanpoan** (21); **edo kanpoko** (26); **edo kasik** (28); **edo kontra** (59); **edo kultura** (23); **edo lagun** (34); **edo lagunen** (21); **edo lan** (50); **edo lanean** (22); **edo lau** (239); **edo laugarren** (24); **edo lege** (22); **edo legez** (22); **edo lehen** (32); **edo lehenago** (23); **edo leku** (35); **edo letra** (21); **edo liburu** (20); **edo literatura** (20); **edo lo** (21); **edo lur** (23); **edo moldez** (83); **edo mundu** (31); **edo munduko** (24); **edo musika** (34); **edo mutil** (22); **edo nahi** (113); **edo nahi gabe** (20); **edo nazio** (27); **edo neska** (31); **edo neure** (35); **edo ni** (59); **edo nik** (126); **edo nik dakita** (38); **edo nire** (103); **edo noiz** (234); **edo nola** (98); **edo non** (79); **edo nor** (64); **edo norbait** (29); **edo norbaitek** (25); **edo norberaren** (20); **edo nork** (35)

edo okerrago (27); **edo orain** (27); **edo oraindik** (25); **edo oraino** (49); **edo ordu** (27); **edo oso** (106); **edo pertsona** (32); **edo politika** (22); **edo san** (35); **edo sei** (115); **edo seme** (20); **edo sexu** (20); **edo soilik** (20); **edo talde** (48); **edo txarra** (50); **edo txarrerako** (33); **edo txikiagoa** (23); **edo ur** (31); **edo uste** (25); **edo zart** (123); **edo zart egin** (27); **edo zart egiteko** (27); **edo zazpi** (70); **edo zeharka** (34); **edo zein** (48); **edo zenbait** (25); **edo zer** (941); **edo zer egin** (47); **edo zer entzun** (26); **edo zer esan** (44); **edo zerbait** (102); **edo zergatik** (43); **edo zerk** (26); **edo zertan** (33); **edo zortzi** (79); **edo zuen** (22); **edo zure** (46)

egia edo (28); **egin edo** (204); **egin edo ez** (50); **egitea edo** (60); **egiteko edo** (87); **egiten edo** (57); **egoera edo** (23); **egon edo** (40); **egun bat edo** (20); **egun edo** (29); **elkarte edo** (33); **eman edo** (84); **ematea edo** (28); **emateko edo** (20); **entzun edo** (34); **era batean edo** (20); **era batera edo** (69); **erakunde edo** (22); **erdi edo** (29); **erdia edo** (24); **ere edo** (21); **esan edo** (58); **eskola edo** (24); **eta bi edo** (21); **eta edo** (27); **eta nola edo** (40); **eta zer edo** (29); **etxe edo** (38); **etxean edo** (43); **euskaraz edo** (31); **ez edo** (32); **fisiko edo** (23); **frantses edo** (25); **frantsesez edo** (20); **gabe edo** (72); **gainean edo** (35); **galdu edo** (33); **gaur edo** (29); **gaur edo bihar** (24); **gaztelaniaz edo** (21); **gehiago edo** (95); **gehiago edo gutxiago** (70); **gisa bat edo** (42); **gisa edo** (54); **gizon edo** (55); **gizon edo emakume** (20); **goitxago edo** (22); **goitxago edo berantxago** (22); **goiz edo** (93); **goiz edo berandu** (33); **goiz edo berant** (50); **gora edo** (22); **gustatu edo** (20); **guti edo** (22); **gutxi edo** (51); **guztiak edo** (21); **hala edo** (41); **halako edo** (41); **hamabost edo** (28); **hamar edo** (108); **hamar edo berrogei** (21); **hamar edo hamabost** (20); **han edo** (116); **han edo hemen** (105); **handi edo** (23); **handia edo** (28); **handiago edo** (20); **handiagoa edo** (24); **handik edo** (35); **handik edo hemendik** (33); **handitzen edo** (21); **hartu edo** (58); **hartzeko edo** (24); **hau edo** (127); **hau edo bestea** (30); **hau edo hura** (56); **haur edo** (21); **hemen edo** (20); **herri edo** (74); **hil edo** (252); **hil edo bizi** (37); **hil edo biziko** (94); **hil edo bizikoa** (38); **hilabete edo** (25); **hiru edo** (241); **hiru edo lau** (208); **hirugarren edo** (28); **hirugarren edo laugarren** (22); **hitz edo** (38); **hogei edo** (42); **hogei edo hogeita** (32); **hogeita hamar edo** (29); **honelako edo** (22); **honen edo** (20); **hori edo** (59); **hura edo** (25)

ideia edo (42); **ikusi edo** (58); **ikusten edo** (20); **inguruan edo** (20); **inoiz edo** (99); **inoiz edo behin** (84); **irabazi edo** (40); **irakasle edo** (20); **irakurri edo** (24); **irakurtzen edo** (24); **iritzi edo** (20); **izan edo** (219); **izan edo ez** (97); **izango den edo** (21); **izatea edo** (64); **jan edo** (25); **jarraitu edo** (26); **jarri edo** (32); **jeneral edo** (21); **jo edo** (20); **joan edo** (32); **joera edo** (22); **jokatu edo** (29); **jokatuko duen edo** (21); **kendu edo** (33); **kide edo** (20); **kultura edo** (20); **lagun edo** (36); **laguntza edo** (24); **lan edo** (23); **lanean edo** (20); **lau edo** (148); **lau edo bost** (123); **lehen edo** (30); **lehenago edo** (145); **lehenago edo beranduago** (24); **lehenago edo geroago** (99); **lehentxeago edo** (34); **lehentxeago edo geroxeago** (27); **liburu edo** (38); **modu batean edo** (41); **modu batera edo** (52); **moduan edo** (38); **nahi edo** (52); **nahian edo** (82); **nahirik edo** (21); **nahita edo** (25); **naizen edo** (23); **neska edo** (21); **nintzen edo** (38); **noiz edo** (249); **noiz edo behin** (21); **noiz edo noiz** (219); **nola edo** (600); **nola edo hala** (564); **non edo** (95); **non edo han** (25); **non edo non** (51); **nondik edo** (41); **nondik edo handik** (38); **nor edo** (69); **nor edo nor** (41); **nork edo** (21); **nuen edo** (20)

on edo (32); **ona edo** (76); **ona edo txarra** (41); **onak edo** (30); **onartu edo** (71); **onartu edo ez** (38); **ondo edo** (29); **onerako edo** (36); **onerako edo txarrerako** (33); **ongi edo** (21); **ordubete edo** (21); **ote zen edo** (20); **pare bat edo** (26); **pertsona edo** (42); **politiko edo** (46); **sartu edo** (33); **sei edo** (89); **sei edo zazpi** (60); **seme edo** (44); **seme edo alaba** (27); **sortu edo** (35); **talde edo** (34); **txarra edo** (20)

urte edo (60); **urtebete edo** (25); **utzi edo** (42); **zazpi edo** (73); **zazpi edo zortzi** (60); **zela edo** (52); **zelako edo** (37); **zelan edo** (32); **zelan edo halan** (26); **zen edo** (119); **zen edo ez** (31); **zer edo** (801); **zer edo zer** (719); **ziren edo** (63); **zirt edo** (144); **zirt edo zart** (123); **zituen edo** (22); **zortzi edo** (59); **zortzi edo hamar** (27); **zuela zer edo** (21); **zuelako edo** (34); **zuen edo** (98); **zuen edo ez** (25); **zuten edo** (50); **zuzen edo** (23); **zuzenean edo** (41); **zuzenean edo zeharka** (24)

---

edoi *iz* hodeia.

Aintzin hortan hain beldurgarri ziren **edoi** beltzak barraiaturik hor agertu da gure iguzki maitearen irri goxoa. Herria

---

edolabere *adlag* gutxienez.

Gamboari, behintzat, hala jazotzen zaio, **edolabere**. Berria - Kultura

Garai batean desberdina zen, astean behin **edolabere** izan ei zen garraiorik, baina azken aldion hilero baino ez. Josu Landa

---

edomdar *izond/iz* Edomgoa, Edomi dagokionea; Edomgo biztanlea.

Amatziasek hamar mila gudari **edomdar** menperatu zituen Gesaltza haranean. Elizen arteko biblia

Etsai bat sortu zion Jaunak Salomoni: Hadad **edomdarra**, Edomgo erregearen jatorrikoa. Elizen arteko biblia

Edomdarren errege eta leinuburuak. Elizen arteko biblia

Salomon erregeak emakume atzerritar asko maite izan zituen, Faraoiaren alabaz gainera: moabdarrak, amondarrak, **edomdarrak**, sidondarrak eta hitiarrak. Jose Antonio Mujika

Menpean hartutako herri guztiei - **edomdarrei**, moabdarrei, amondarrei, filistearrei eta amalektarrei-. Elizen arteko biblia

---

edonogaz *adlag* edonorekin.

Hegoamerikan, beste jente klase bat ei dago, **edonogaz** errez lagun egitekoa. Xabier Amuriza

---

edonoiz *adlag* noiznahi, edozein alditan.

Hilak **edonoiz** izaten dira. Gotzon Garate

Ebazpenak zehatz-mehatz dio Irakeko gobernu berriak **edonoiz** eska diezaikeela okupazio indarrei alde egiteko. Berria - Mundua

Agerpenaren anizkunkiaren gure atzematea hurrenez hurren gertatzen da beti, eta beraz, aldakorra da **edonoiz**. Ibon Uribarri

Errusiarra irrikaz baitago beti hitz bihotz-altxagarri hori entzuteko, edonon eta **edonoiz**, kargua, titulua eta lanbidea edozein duelarik ere. Jose Morales

Edonora eramaten zaitu **edonoiz**. Harkaitz Cano

Euskara batu berbera erabili da edonon, edonorekin eta **edonoiz**, eta hori ez da zuzena eta zuhurra. Koldo Zuazo

Mundua bat dela, makinak jende eta jendeak makina bihur daitezkeela **edonoiz**. Itxaro Borda

Esana dizut, urte zaharrean ez ezik **edonoiz** dela bisitagarria gure herria. Koldo Izagirre

Gauzak ondo zihoazen, gogoratzen nintzela behintzat, beste **edonoiz** bezain ondo. Oskar Arana

Lehiakortasun hutsaz haratago, Ullrichek edonork edonon **edonoiz** egiten dituen akatsak ditu. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
da edonoiz (3); **edonoiz eta** (5); **edonoiz eta edonon** (4); **edonoiz gerta** (3); **edonon eta edonoiz** (5); **eta edonoiz** (10)

---

edonola *(890 agerraldi, 90 liburu eta 445 artikulutan; ETCn 9.208 agerraldi)* **1** *adlag* nolanahi, edozein modutan.

Edonola, aukera honen arabera, Jainkoa ez da moralaren iturria. Askoren artean

Edozer **edonola** justifikatzeko oratorioak leku hartu dio beste guztiari. Hasier Etxeberria

Berez, ez dute ordena jakinik eta **edonola** konbina daitezke w-en erantzunak. Iñigo Aranbarri

Gelako atea giltzaz itxi, **edonola** jantzi, eta poliziaburuaren etxera joan zen. Jose Morales

Jostunak, makinak eta lan-mahaiak **edonola** pilatuta daudela irudi dakioke kanpotik datorren behatzaileari, baina bulegotik ageri zaion ikuspegia ordenaren eta, batez ere, garbitasunaren paradigma iruditzen zaio Ivani. Iban Zaldua

Izan ere, obra honetan ez naiz behin ere **edonola** mintzatu, zehaztasun osoaz eta egokitasun handiz baizik. Xabier Kintana

Beharrik, tarantasa denboraleak zeharka baino jotzen ez zuen zoko sakon hartan aparkatu ahal izan zuten, **edonola** esanda. Karlos Zabala

Besterik gabe, mundu guztiaren aurrean **edonola** agurtzera behartuta ikusi neure burua. Ramon Saizarbitoria

Defentsa bikaina egiteaz gainera eraso ere egin dute, eta ez **edonola**. Edorta Jimenez

Zaldizkoen destakamendu bat bidali zuten haren atzetik, eta bidea galaraziko zioten **edonola**! Karlos Zabala

Atsegin izaten nuen gauean ohatzean etzan eta sabaira begira egotea, petroliolanparak egiten zuen uztai zuriaren inguruko itzalei begiratzea, eta **edonola** begiratuta ere, sabaian beti eskeleto bera ikusten nuen. Fernando Rey

2 *edonola dela ere* dena dela.

Edonola dela ere, gaur ez da etorriko. Harkaitz Cano

Edonola dela ere, laguntza, onenean ere, hainbat GKEk eskatzen duten %0,7tik oso urruti dago oraindik ere, miseria hutsa beste gastu batzuen aldean. Iñaki Heras

3 *edonola den* dena dela.

Edonola den: zaldiko-maldikoan ibiltzea baino, hark bira ematen zuen guztietan aita han zegoela ikustea zen, ororen gainetik, niri gustatzen zitzaidana. Anjel Lertxundi

4 *edonola ere* dena dela.

Edonola ere, alkoholarena ez da bigarren bertsioaren aldaera mantsoagotu bat baino. Anjel Lertxundi

Edonola ere, ez zion argitu zer egiten zuen mutrikuar batek gerra hartan, espainolekin, frantsesak lagun zituela eta ingelesen kontra. Ramon Saizarbitoria

Edonola ere, zibilizazioek badute puntu komun bat: aparteko klase bat izatea gizarte primitiboekiko. Iñaki Mendiguren

Edonola ere, Zalduarena ez da bizitza sentitzeko manera bakarra. Markos Zapiain

Edonola ere, umore onez hartu zuten denek apustuaren amaiera. Jon Arretxe

Baina, **edonola ere**, gure pentsamenduak ez ziren denak hain samurrak izango. Pedro Alberdi

Edonola ere, ereduak beharrezkoak dira, eta errealitate ekonomikoa azaltzeko baliagarri izan behar dute. Iñaki Heras

Edonola ere, deitzeko gizon hari xehetasun gehiago nahi banuen. Bernardo Atxaga

Dena den, berak ulertzen zuen... berak halako arreba bat izan balu... **Edonola ere**, kapadun jende hura... Iñaki Mendiguren

Cesar Flores epaileak, **edonola ere**, presidente ohia eta beste akusatuak atxilotzeko agindurik ez ematea erabaki zuen atzo. Berria - Mundua

Azken horrek du, **edonola ere**, EADSko lehendakari izateko aukera gehien. Berria - Ekonomia

Aterkiaren ardatzera hurbilduko naun **edonola ere**, eta orduan ukabilak neskaren izterraren higidura hartu du mahonezko galtzaren eta oihal arrunteko gona eta azpigonaren gaindi. Koldo Izagirre

Horrek ez du esan nahi, **edonola ere**, intelektualek edo artistek ez dutela kobratu behar beren lanaren ordaina. Berria - Gaiak

Garraiaturiko hondakinak, **edonola ere**, zabor nuklearrez daude osaturik ia %100. Berria - Gaiak

Nolanahi ere, hemen bereziki nire autugaia den dedukzio objektiboak bere indar osoa hartzen duela, eta **edonola ere** horretaz 92 eta 93 orrialdeetan esaten dena aski izan daiteke. Ibon Uribarri

Haren oihartzunak ez dira oraindik isildu: arazo biologikoak errazak direla uste izatera eramaten dute, edo, **edonola ere**, garunaren ahalmen teknikoa bizkortasunez aplikatuz konpon daitezkeela uste izatera. Irene Aldasoro

-Berriro joango naiz hara, **edonola ere**. Jon Arretxe

Biharamunean deitu zidan: Alemana dela esango nikek, baina oso aleman arraroa, **edonola ere**. Iban Zaldua

Sintomen aurkako botikak badaude, **edonola ere**. Berria - Harian

5 *edonola ere den* dena dela.

Edonola ere den: lur berrien lilurak bideratzen du existentziaren monotonia. Anjel Lertxundi

Edonola ere den: pragmatismoak, eraginkortasunean oinarrituriko jarrera horrek, aurrean jartzen zaizkion aukera eta gertakizun guztiak baliatzen ditu. Anjel Lertxundi

Edonola ere den, gertatutakoaren muin-muinean geunden berriro. Anjel Lertxundi

Edonola ere den, eta nire balizko urrutiegi joan izanari buruz: subkontzienteak baditu hanka-sartze gisa mozorrotutako irtenbideak. Anjel Lertxundi

6 *edonolako* *izlag*

Zaindu zeuen buruak **edonolako** gaiztakeriatik. Elizen arteko biblia

Ez da **edonolako** robota. Berria - Gaiak

Halere, horrek ere bere muga dauka, gauza ez baita **edonolako** distantzia edo neurriraino hedatzen. Xabier Kintana

Barkamenak barkaezina ere barkatu egiten du, **edonolako** arauak alde batera utzirik. Joseba Zulaika

Gogaikarri zitzaizkion **edonolako** zatarkeriak eta moduzkotasunaren kontrako esapideak oro. Jose Morales

Baionako buru lehenak deklaratu du bakarrik Basusarriko auzapezak proposatu diola biek elkarrekin erostea ontasun hori, jabe pribatuei **edonolako** eraikuntzak hor altxatzen uzteko orde. Herria

Gizon hura ez zen edonor, gizon hura ez zen **edonolakoa**. Hasier Etxeberria

Bakea, ez **edonolakoa**: barrukoa eta kanpokoa, "espirituko bake garbi, xalo eta egiazkoa" zein giza harremanetan barreiatzen dena. gauden ziur alor horretako gure gehiegikeriak, **edonolakoak** izanda ere, naturaren aurkako irainak izan beharrean, hari eskainitako omenaldi zintzoak direla. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baina edonola (6); **baina edonola ere** (5); **baina ez edonola** (3); **beste edonola** (4); **beste edonolako** (6); **da edonola** (4); **da edonolako** (5); **edo beste edonolako** (3); **edonola begiratuta** (3); **edonola begiratuta ere** (3); **edonola ere** (800); **edonola ere den** (8); **edonola eta** (4); **edonola izanda** (4); **edonola izanda ere** (4); **edonolakoak izanda** (3); **edonolakoak izanda ere** (3); **edonon eta edonola** (3); **eta edonola** (12); **eta edonola ere** (3); **eta edonolako** (7); **eta ez edonolako** (3); **ez da edonolako** (3); **ez**

edonola (6); **ez edonolako** (4)

edonon *(orobat **edonun** g.er.)* **1** *adlag* nonahi, edozein tokitan.

Edonon daude, geure artean ditugu. Jose Morales

Edonon daude Jaunaren begiak gaiztoei eta onei begira. Elizen arteko biblia

Erabaki zuten leku hartan bizi zuten pobretasunarekiko atxikimenduan biziko zirela beti eta **edonon**. Askoren artean

Hemen, han eta **edonon**. Berria - Ekonomia

Edonon eta edonori datorkio lagun, **edonon** eta edonori gerturatzen zaio. Askoren artean

Oraindik ez zen **edonon** eta edozein eratara erabil zitekeen ametsezko luma hura. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maisuk arrazoi bazuen, horregatik zegoen Paul D trapuzko panpina bat eginik, **edonon** eta edonoiz hartu eta botatzen zuela neska hark. Anton Garikano

Horrenbestez, edonola eta **edonon**, behin eta berriz oso txintxoak direla esanez arituko zaizkigu enpresak. Iñaki Heras

Edonon daudela ere, eremitorioetan nahiz beste bizilekuetan, gorde bitez anaiak inongo lekurik berentzat hartzetik. Askoren artean

Gauza bakarra zekien, artxiduke bati -dena delakoa zela ere- tiro egin ziotela Sarajevon -**edonon** zegoela ere-, eta Alemania eta Frantzia elkarrekin oso haserre zeudela, haren kariaz. Mirentxu Larrañaga

Oheari dagokionez, **edonon** ostatuz zegoela ere, ez zuen ohe jantzirik onartzen. Askoren artean

Hobe da egun bat zure atarietan mila egun beste **edonon** baino.

Hondakinak alde guztietatik, hildakoen gorpuak **edonon**. Berria - Harian

Enborrak baino ez ziren ikusten, enborrak **edonon**. Jose Morales

Kea **edonon**. Harkaitz Cano

2 *edonon ere*

Edonon ere nekez aurkitzen dena ez ezazu bila landetxe xume honetan. Imanol Unzurrunzaga

Jendea besteri aztalak jaten abila eta prestua dela **edonon ere**! J.M. Olaizola "Txiliku"

Anaiaren bat **edonon ere** gaixo eror baledi, beste anaiek ez bezate bertan behera utz; baizik eta izenda bedi anaia bat, edo gehiago, behar izanez gero, beraiek zainduak izatea nahiko luketen bezalaxe zain dezaten. Askoren artean

Beste **edonon ere** egon gintezkeen, leku sorginduren batean. Koro Navarro

3 *edonongo izlag*

Eta beste **edonongo** anaiak garbitasunetik eta onestasunetik inoiz okertuko balira ere, leku hau bedeinkatua eta Ordena osoaren ispilu eta etsenplu izatea nahi dut. Askoren artean

Abisuok, edozein txokorretan agertu dira, **edonongo** deiak, norberaren gogoan halako pintada zaharrak. Iñigo Aranbarri

Portu ederra izango da, behin atrakatu ondoren **edonongo** haizeetatik gordean egongo zaretelako. Joseba Sarrionandia

Egunkariak eman nahi izan dio balio sinbolikoa berez edonoizkoa eta ia **edonongoa** izan daitekeen kamera kliskari. Iñigo Aranbarri

Jende (hitz bitan) arrunt eta **edonongoa** bezalakoa; partikularitate interesgarri batzuekin, hori bai. Pablo Sastre

edononditsu *adlag* ia edonondik.

Edononditsu har zitezkeen, baina, hona hemen Crepúsculo de los ídolos baitatik pasarte batzuk: "Todos los viejos monstruos de la moral coinciden unánimemente en que il faut tuer les passions akabatu egin behar dira grinak... Joxe Azurmendi

edonongotasun *iz* edonongoa denaren nolakotasuna.

Notatxo hau Richard Rortyri hartu diot, *Ensayos sobre Heidegger y otros pensadores,* 1993, hemen ikusten ari garen fenomeno batzuen **edonongotasuna** sumarazten duelako nolabait. Joxe Azurmendi

edononlandia *iz adkor*

Esan nahi du Estonian atxilotu dituztela, Zambian, Frantzian, edonon baina eurena ez den **edononlandia** batean. Iñigo Aranbarri

edonor *(**1.193** agerraldi, **202** liburu eta **344** artikulutan; ETCn **11.476** agerraldi)* **1** *izord* nornahi.

Edonor izan zitekeen norbait eta zerbait, antza, Parisen. Hasier Etxeberria

Emaiozu labana bat eta utz ezazu bide nagusian: **edonor** hilko du, **edonor** garbituko du kopek batengatik! Jose Morales

Edonor bizi daiteke jadanik harena ez den etxean, garbitzeko sufrea barreiatu ondoren. Elizen arteko biblia

Edonor deprimitzeko moduko lekua zela pentsatu zenuen sartu bezain laster. Sonia Gonzalez

Idatzi hau irakurtzen duen **edonor** konturatuko da alde batera utzi ditudala Europa odolez estali duten delitu mota batzuk. Juan Martin Elexpuru

Asperraldiak denbora luzea irauten badu, pertsona hori **beste edonor** baino errazago gaixotuko da. Berria - Gaiak

Izan zaitezke edozein eta **edonor**. Hasier Etxeberria

Edonor bere onetik ateratzeko moduko auzia zen. Karlos Linazasoro

Edonor, edozer, nehor edo guti. Herria

Bera eta **edonor**! Migel Angel Mintegi

Ez da **edonor** Ernest Hemingway. Edorta Jimenez

2 (nork kasuan)

Herri txiki hartan denek elkar ontsa ezagutzen zutenez, **edonork** bazekien nor non ari zen lanean. Itxaro Borda

Heure etxean hago, hire emaztea ere bai, eta hire semea **edonork** nahi lukeen bezalakoa duk. Juan Kruz Igerabide

Jende guztiak merkatu beltzean erosten eta saltzen ditu gauzak; **edonork** eskaintzen dizu zerbait erosteko. Josu Zabaleta

Hemen egia, askotarikoa izateaz gainera, edonon dago eta **edonork** dauka, baina tolesturik. Markos Zapiain

Edonork lor dezake kristalezko ontzi garbi bat, gatza, ura eta termometro bat. Hasier Etxeberria

Begi haietan begiratzen zuen **edonork** bere burua ikusten zuen urezko ispilu batean bezala. Felipe Juaristi

Bai filosofoek, bai teologoek, psikologoek edota sentiberatasun apur batez jantzitako **edonork** laguntza aurkituko du *Aitortzak* liburuan. Imanol Unzurrunzaga

Horrelako gizakume asko aurkitzen ditu **edonork** bizitzan. Jose Morales

Garbi dagoen **edonork** jan dezake horietatik. Ana Urkiza

Edonortzuk izan zitezkeen, han dozenaka neska ikusten baitziren, bikoteka, hirukoteka, laukoteka... ederrak, motzak, zaharrak, gazteakøø. Jon Arretxe

3 (nori kasuan)

Haiek bai harmaila malkartsuak, zabaleraz eta goieraz juxtu behar lukeenaren alderantziz eginak, **edonori** arnasa itotzeko ere. Joxe Austin Arrieta

Egia funtsean subjektiboa da; Egia **edonori** zuzendua da eta ez du identitate bat eraikitzen. Joseba Zulaika

Heroi haiek guztiek izter ikaragarri mardulak eta bibote izugarri handiak zituzten, **edonori** ilea lazteko modukoak. Jose Morales

Muga maleta txiki baten barnean pasatu zuela kontatzen dio **edonori**, eta baliteke egia izatea, askoz gehiago ez baitu betetzen bere gorputz ñañarrak oraindik ere. Hasier Etxeberria

Edonon eta **edonori** datorkio lagun, edonon eta **edonori** gerturatzen zaio, eta egiazko batasunaren maitaleak ez du galerarik nozitzen askoren artean zatituagatik. Askoren artean

Edonori gerta dakiokeen gauzarik okerrena bere desioak errealitate bihurtzea dela. Joxemari Iturralde

4 (noren kasuan)

Hitz batean, hango distira, nolabait, **edonoren** burua nahasteko modukoa zen. Jose Morales

Edonoren mende eror daiteke. Ander Irizar

Edozein ume normal erabat asaldatuko zen hain hurbileko izandako **edonoren** galeraz, baina ez zen halakorik ageri Stephenengan. Xabier Olarra

-Agindu behar izan nion ez nintzela **edonoren** autora igoko. Joxe Austin Arrieta

Izan ere, eguneroko bizitzaren atzera-aurrera horretan, inguruan hainbeste ume eta bisitekin, etengabe nagusitzen zen **edonorengan** errepikaren zentzua. Anton Garikano

5 (norekin kasuan)

Ergel hutsa besterik ez den gizon batekin zaudela ezkonduta, handi usteko kirten batekin, eta sufriarazi egiten dizula, eta nik zure lekuan **edonorekin** engainatuko nukeela. Josu Zabaleta

Parrandazale itzela zen, berez, eta goizera arte egon zitekeen **edonorekin** eta edozertaz berbetan. Xabier Montoia

Klaseko beste **edonorekin** ere atera izango zen bere onetik. Bernardo Atxaga

Hartaz gain lanbiderik aproposa zuen txostenarekin interesaturik egon zitekeen **edonorekin** harremanetan jartzeko. Migel Angel Mintegi

Eta ez da **edonorekin** hitzartua ituna, alajainkoa. Edorta Jimenez

Orain arteko jardunean ez da horrelako bereizketarik egin: euskara batu berbera erabili da edonon, **edonorekin** eta edonoiz, eta hori ez da zuzena eta zuhurra. Koldo Zuazo

6 (norentzat kasuan)

Sentsibilitate apur bat duen **edonorentzat** agerikoa da testua formaren aldetik zoragarri idatzita dagoela. Ramon Saizarbitoria

Ez zedila inor kontura gure barne sekretuaz, dagoeneko **edonorentzat** garbi egon bazitekeen ere. Joseba Zulaika

Laborantzak galtzen duena turismoak bereganatzen du bainan hotel horiek ez dira **edonorentzat** eginak. Herria

Edonorentzat oharkabean pasa ohi diren gizon gris horietakoa naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizon dotoreari haserre laino bat pasatu zitzaion begietatik, eta esan zion jende ondraduarentzat, lan egiteko prest zegoen **edonorentzat**, beti irekiak egongo zirela Argentinako ateak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire porrota onartzen ikasi nuen, gertaera ezinbesteko gisa, nire patu gisa, halako moldez non, beste **edonorentzat** desesperazio iturri zatekeena, niretzat itxaropen mugagabearen iturri baitzen. Iñaki Iñurrieta

Onargarritasun subjektiboak uste osoa izena du (niretzat), objektiboak ziurtasuna (**edonorentzat**). Ibon Uribarri

Etxe beti **edonorentzat** ireki horrek, eta hango korridore luze eta ilunak [...] lilura sakona eta beti-batekoa pizten zidaten. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina edonor (4); **beste edonor** (18); **beste edonor baino** (3); **da edonor** (16); **daiteke edonor** (4); **den edonor** (7); **duen edonor** (21); **duen edonor konturatuko** (4); **edo beste edonor** (3); **edonor baino** (5); **edonor beldurtzeko** (3); **edonor bere** (4); **edonor dela** (5); **edonor dela ere** (5); **edonor ezin** (3); **edonor gortzeko** (3); **edonor hil** (3); **edonor ikaratzeko** (4); **edonor izan** (16); **edonor izan zitekeen** (7); **edonor joan** (3); **edonor konturatuko** (5); **edonor konturatuko da** (3); **edonor ohar** (3); **edonor sar** (5); **edonor sar daiteke** (3); **eta edonor** (16); **ez da edonor** (9); **ez zen edonor** (6); **ezagutzen duen edonor** (3); **zen edonor** (8); **zuen edonor** (6)

beste edonorekin (6); **edonorekin hitz** (3); **eta edonorekin** (4)

beste edonoren (8); **beste edonorena** (5); **beste edonorenak** (5); **beste edonorentzat** (4); **da edonorentzat** (5); **dago edonoren** (7); **dago edonoren esku** (4); **dago edonoren eskura** (3); **dagoen edonorentzat** (4); **duen edonorentzat** (6); **edonoren aurka** (6); **edonoren aurrean** (5); **edonoren esku** (12); **edonoren eskuetan** (5); **edonoren eskura** (7); **ere edonoren** (3); **eta edonoren** (3); **eta edonorentzat** (4); **ez dago edonoren** (7); **nahi duen edonorentzat** (3); **zen edonorentzat** (3)

beste edonori (9); **da edonori** (3); **den edonori** (4); **diezaioke edonori** (3); **dio edonori** (4); **dituen edonori** (3); **dizun edonori** (3); **duen edonori** (14); **edo edonori** (4); **edonori aurre** (4); **edonori aurre egiteko** (4); **edonori egin** (4); **edonori galdetu** (3); **edonori gerta** (13); **edonori gerta dakioke** (4); **edonori gerta zekiokeen** (3); **edonori irabazteko** (3); **edonori limosna** (3); **eskatzen dizun edonori** (3); **eskatzen zion edonori** (3); **eta edonori** (11); **zen edonori** (6); **zion edonori** (9); **zion edonori limosna** (3); **zuen edonori** (6)

baina edonork (5); **bat duen edonork** (4); **beste edonork** (43); **beste edonork baino** (5); **beste edonork bezain** (3); **beste edonork bezala** (8); **beste edonork ere** (3); **dagoen edonork** (3); **den edonork** (15); **ditu edonork** (3); **dituen edonork** (5); **du edonork** (5); **duen edonork** (37); **edo beste edonork** (4); **edo edonork** (3)

edonork baino (5); **edonork behar** (3); **edonork bere** (3); **edonork bere burua** (3); **edonork bezain** (3); **edonork bezala** (13); **edonork daki** (12); **edonork dakien** (6); **edonork dakien bezala** (5); **edonork du** (3); **edonork egin** (17); **edonork egin dezake** (5); **edonork egin dezakeen** (4); **edonork egingo** (3); **edonork egiteko** (3); **edonork egiteko modukoa** (3); **edonork erabil** (6); **edonork erabiltzeko** (3); **edonork ere** (6); **edonork esango** (14); **edonork esango dizu** (5); **edonork esango luke** (4); **edonork ez** (4); **edonork ezin** (4); **edonork har** (4); **edonork har dezake** (3); **edonork ikus** (4); **edonork ikusi** (4); **edonork irabaz** (8); **edonork irabaz dezake** (4); **edonork izan** (8); **edonork izan lezake** (3); **edonork izango** (3); **edonork izango du** (3); **edonork joka** (4); **edonork lor** (6); **edonork lor zezakeen** (3); **edonork maite** (4); **edonork maite gaitu** (4); **edonork nahi** (3); **edonork parte** (4); **edonork parte har** (4); **edonork pentsa** (4); **edonork pentsatuko** (3); **edonork ulertuko** (3); **edonork ulertzeko** (4)

eta beste edonork (4); **eta edonork** (21); **ezagutzen duen edonork** (5); **gutariko edonork** (3); **hori edonork** (3); **izan den edonork** (3); **izan duen edonork** (3); **luke edonork** (4); **txukun edonork** (4); **txukun edonork maite** (4); **zuen edonork** (8)

---

edonora *adlag* noranahi, edozein tokitara.

Edonora behatzen nuelarik, mendiak ikusmenean, mendi urdin harroak. Xabier Montoia

Edonora joan, eta istorio berbera entzuten zen bazter guztietan. Jose Morales

Harrezkero, **edonora** jarraitzen zion txakur emeak. Mirentxu Larrañaga

Edonora lehenago, amaren etxera baino. Joan Mari Irigoien

Adela nire gerizpea bilakatu da, **edonora** noala atzetik datorkit, edonon esertzen naizela ondoan esertzen zait. Patxi Zubizarreta

Zorigaitza bidaliko dut bizidun guztien gainera; zu, ordea, bizirik aterako zara, **edonora** zoazela ere. Elizen arteko biblia

Edonora joateko autoa hartzeko joera. Berria - Euskal Herria

Joaten nintzen **edonora** eramaten nian, neure lepozapian bildua. Juan Garzia

Pentsatu nuen gizakia **edonora** eta edozer egitera irits daitekeela: bere neurriko kapa josten du beti eta zulo beltzenean ere gauza da bizitza ez doakiola hain gaizki sinesteko. Anjel Lertxundi

Konta nirekin edozertarako, Alberto, **edonora** eramateko. Juan Kruz Igerabide

Ongi gogoan dut dendaurre baten kristalean islatua ikusi nuela: bezperako jertse grisarekin, urduritasuna igarri-igarrian, burua **edonora** jiratuz. Patxi Zubizarreta

Leku honetan ezin du norberak lasai hausnartu, itota sentitzen hasi naiz eta banoa beste **edonora**. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste edonora (10); **edonora begiratuta** (4); **edonora begiratuta ere** (3); **edonora begiratzen** (3); **edonora joan** (12); **edonora joanda** (5); **edonora joanda ere** (5); **edonora joateko** (5); **edonora noala** (4); **eta edonora** (8)

edonorantz *adlag* zernahi tokitarantz.

Oinaztuak ere euritan zeharretara hegatzen ikusten dituzu; hodeietan leherturiko suak **edonorantz** zabaltzen dira; sarritan garrezko indarra lurrera jausten da. Xabier Amuriza

Zu, ordea, hura erabat inguratuz eta barneratuz, baina **edonorantz** mugarik gabe. Imanol Unzurrunzaga

Baldin espazioa **edonorantz** infinitua bada. Xabier Amuriza

---

edonorkoi *izond* edonorako joera duena, alderraia.

Zauria, elikaturik, bizitu eta zoldu egiten baita, eta berotasuna egunez egun gehitzen eta nahigabea handitzen, lehen zauriak ez badituzu beste kolpe batzuekin ezabatzen eta aurretik, berri direno, han-hemen Venus **edonorkoiarekin** sendatzen, edo gogoaren mugidak beste zerbaitera bihurtu ezin badituzu. Xabier Amuriza

---

edonortasun *iz* edonorko izateko nolakotasuna.

Baina, portzentaiak oso kontsolagarri izan badaitezke ere, errealitate gordinak kaltetuaren **edonortasuna** erakusten zuen. Bernardo Atxaga

---

edonortzuk ik **edonor**.

---

edontzi *(ETCn **522** agerraldi; cf **edalontzi** ETCn **5.000** agerraldi)* **1** *iz* edalontzia.

Baxerategian zeuden ilaran platerak, azpilak eta **edontziak**, eta labana-, sardexka- eta koilara-sortak. Irene Aldasoro

Edontziei talka eragin eta edan egin zuten. Irene Aldasoro

Botilen tapoiek salto egin zuten, eta sepia-koloreko bitsak gorantz egin zuen **edontzietan**. Lopez de Arana

Whiskyak **edontzietara** isurtzean egiten zuen musika arinak interludio atsegin bat eratu zuen. Irene Aldasoro

Edontziak jaso egiten ziren, ñir-ñir eginez talka egiten zioten elkarri, jaso eta talka egiten zioten elkarri, halako dantza batean. Lopez de Arana

Bitsak gorantz egin zuen, dardarka, eta gero, **edontzitik** gainezka egin zuen. Lopez de Arana

Etxean zainduz hazi zuen, seme-alabekin batera, bere ogitik emanaz, bere **edontzitik** edanaraziz, eta bere magalean lotaraziz. Jose Antonio Mujika

Gazta-otarteko bat olibekin eta **edontzi** bat esne. Lopez de Arana

Lebigre jaunak hiru **edontzi** pontxe atera zizkien. Karlos Zabala

Paristik Havrera bitartean, presoei ez zieten ez ogi koskorrik, ez **edontzi** urik eman; ahaztu egin zitzaien irten aurretik presoei jatekoak banatzea. Karlos Zabala

Beste pilula-dosi bat eta aireportuan bi **edontzi** laranja-ur hartu eta gero. Oskar Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Senarrak bere **edontzi** luzea hartu zuen. Mirentxu Larrañaga

Zerbitzariak **edontzi** txiki sabeldua ipini ziolarik mahai gainean, orduantxe jakin zuen zergatik. Jon Muñoz

Neska azkenean egongelara itzuli zenean, mutil gaztea likido zurbil eta hotza botatzen ari zen **edontzi** txikietan. Mirentxu Larrañaga

Mahai gainean **edontzi** zikin batzuk eta botila bat Green River zeuden. Lopez de Arana

Zilindro itxurako lau **edontzi** berdin-berdin zeuden mahai apal baten gainean. Jon Muñoz

Ni erdi hilda nago bizimodu horri esker -esan zuen Annak **edontzi** hutsa barra gainean utziz. Lopez de Arana

Whiski eta sodadun **edontzi** erdi hustuak zituzten alboan. Mirentxu Larrañaga

Botilari kontu eginez, arauzko **edontzi** txikiaren neurria ez ginditzeko. Karlos Zabala

Plastikozko **edontziak** hartuta, oholtzaren ondora itzuli da. Javi Cillero

Ikusia naiz Samotraziako eraztun burdinazkoak jauzika eta burdinaren txirbilak brontzezko **edontzietan** ezin kabituz, azpian harri magnetikoa ipintzean. Xabier Amuriza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Medikuek ere, haurrei asentsio belar higuingarria eman nahi dietenean, **edontzi** ertzak ezti likore gozoz eta beilegiz gantzutzen dituzten bezala. Esteban Antxustegi

Nahiz eta miopiak betaurrekoak -**edontzi**-ipurdi halako lodiak- orritik hiru hatzetara edukitzera behartzen zuen. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pattar **edontzi** txikiak, ardo baso lodiak, fruitu zukuetarako kopak, absenta **edontziak**, garagardo pitxerrak. Karlos Zabala

Martinek besoaz keinu bat mahai gainean egin eta bi ardo-**edontzi** bota zituen. Lopez de Arana

Barra aurrean, zerbitzari bat zutik zegoen, koktel-**edontziz** betetako erretilu bat eskuan. Lopez de Arana

Bere grog **edontzia** hartzea gustatzen zaiona. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere edontzi (4); **bere edontzia** (3); **bere edontzitik** (3); **bi edontzi** (4); **edontzi bat** (20); **edontzi bat gin** (3); **edontzi bete** (4); **edontzi eta** (3); **edontzi hutsa** (3); **edontzi txikiak** (3); **edontzia altxatu** (3); **edontzia hartu** (3); **edontziak eta** (3); **eta edontzi** (11); **eta edontzi bat** (3); **eta edontzia** (5); **eta edontziak** (9); **hiru edontzi** (3); **lau edontzi** (3); **zuen edontzia** (4)

---

edontziondo

Zer edontzi eta **edontziondo**! Jon Muñoz

---

edonun ik **edonon**.

---

edoski, edoski, edoskitzen *(orobat **edoskitu** g.er.)* **1** du *ad* xurgatu, eskuarki amaren bularra.

Artean **edoskitzen** eta atseginetan plazer hartzen eta nire gorputzeko minetan, berriz, negar egiten besterik ez nekien. Imanol Unzurrunzaga

Esan ezineko bizitasunez ospatzen zuen Jesus haurraren Jaiotza, eta festen Festa zela esaten zuen, Jainkoak, haur txiki eginik, giza bularra **edoski** zuelako. -Ezinezkoa al zen berak bular batetik eta nik bestetik **edoskitzea**? Askoren artean

Bere bularretatik **edoskitzera** emanez entretenitzen zuen; ezer ez zeukaten, jostailuak ematen zuten bular haietatik. Juan Garzia

-Esan dizudan bezala, titiko haurra nintzela, gupidaren esnea **edoski** nuen. Patxi Zubizarreta

Imanol eta Joxemari belauniko zeuden, euren aurrean txakurka eta hankazabalik Klaudio eta Mikel bi lehenen zakilak irrikaz **edoskitzen**. Aitor Arana

Gauza zoragarri hura milikatzen eman nuen denboralditxoa, berak nirea kementsu **edoskitzen** zuen bitartean. Juan Martin Elexpuru

Nik gogo itzela nuen **edoski** ziezadan eta, alutik atereaz, ahoan sartu nion, eskuekin hartu zuen eta xurgatzen hasi gogotsu. Juan Martin Elexpuru

2 irud/hed

Bixentaren eskutitza hartu nuen eskutan berriro, eta lerro haiek poliki **edoski**. Txillardegi

Hots, oroitzapen bizi horiek neure artean **edoskitzen** nituelarik, Valentín Gómez nagusiaren ahotsa entzun dut. Txillardegi

---

edoskialdi *iz* edoskitzen den aldia.

Eseri zen eta zirrika eta esku-sartzen hasi zitzaidan, eta ni, **edoskialdiko** berotasunak eraginda, neure onetik at nengoen, eta esku bat eraman nuen alura, eta motel-motel ferekatzen hasi nintzen, bera ez konturatzeko moduan. Juan Martin Elexpuru

---

edoskiarazi, edoskiaraz, edoskiarazten du *ad* edoskitzera behartu.

Gizagabea iruditzen zitzaidan, hegaldia hasi aurretik, eta orain, hegazkinak berak **edoskiarazten** didala, halako seme samurtasun bat sentitzen dut harenganako. Josu Zabaleta

---

edoskitu ik **edoski**.

---

edoskitzaile *iz* edoskitzen duen pertsona.

Saiatzen bazara, **edoskitzaile** bikaina izango zara laster... Juan Martin Elexpuru

Minbizia duten hiru urte bitarteko haurrak gaixo dauden beste haur batzuekin batera egoten dira, **edoskitzaileen** bigarren solairuan. Berria - Harian

---

edoskitzaro *iz* edoskitzeko garaia.

Edoskitzaroan zazpi aldiz jetzi zituzten eme horietako bakoitza. Berria - Gaiak

---

edoskitze *iz* xurgatzea, eskuarki amaren bularra.

Guztira, 90 **edoskitze** aldi aztertu zituzten, eta 1.200 esne analisi egin zituzten. Berria - Gaiak

Haurrei A bitaminazko osagarriak ematea, iodoa emateko kanpainak egitea, **edoskitzearen** aldeko politikak bultzatzea. Berria - Gaiak

Edoskitzea «arau biologikotzat» hartu du ikerketak, eta gutxienez lehen sei hilabetez amaren esneaz elikaturiko haurrak eredu jarri ditu. Berria - Gaiak

---

edota *junt edo* juntagailuaren indargarria, eskuarki bi perpaus edo sintagmaren artean erabiltzen dena.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea **edota** liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratara. Koro Navarro

Finantzen aldetik ahulenak diren lehiakideak baztertu edo beretu, esportazioan barne-merkatuan baino prezio apalagoak erabili (dumping), **edota**, baita ere, beren berrikuntzak zabaltzen ez utzi. Koro Navarro

Joko baketsuak **edota** kafe etxean nargile erretzea nahiz karta jokoan aritzea, beste xederik ez zuen. Patxi Zubizarreta

Ondoren, mirarigileak datoz; gero, sendatzeko **edota** behartsuei laguntzeko **edota** elkartea gidatzeko edo hizketa arrotzez mintzatzeko dohaina dutenak. Elizen arteko biblia

Nire irudiko, ordea: anbarra bezala, mate eta ia gardenak direlako, **edota** hezurrak bezala, zurbil eta hauskorrak direlako. Joxe Austin Arrieta

Benetan harrituta dirudi Ferminek, joan beharrean naizela esan ez banio **edota** berarekin bizi banintz bezala. Pako Aristi

Hori falta bada, erraz egingo dira ordezkoak barazkiekin, haragiarekin **edota** lekaleekin; ura ere aterako da, putzuak sakonduz **edota** bat-bateko euri-erauntsiak direnean teiletatik erortzen den ura jasoz Zekorren okela jaten dudala uste al duzu, **edota** akerren odola edaten? Santiago Iruretagoiena

Erakutsiek ez habilela jolasean **edota** ondopasaka. Juan Garzia

Ile adatsa ez ezik, betazal eta betileak ere beilegiak zituen; begiak, berriz, oso urdinak, nola izaten diren urdin, ez islandiar **edota** suediarrenak, baizik eta, areago, North Capeko jendearenak. Bernardo Atxaga

Ez da, halaber, erlaziorik zientziaren eta gozotasunaren artean, **edota** otzantasunaren eta mingostasunaren artean, horiek guztiok nolakotasunaren "goragoko generoan" jar daitezkeen arren. Xabier Kintana

Gizabanakoek arrazoi askorengatik eskatzen dute dirua, ondasunak edo zerbitzuak erosteko, adibidez, **edota** aberastasuna metatzeko. Iñaki Heras

Eduki existentzialez betetako galderak dira, hainbesteraino non Agustin existentzialistatzat **edota** existentzialismoaren aitzindaritzat ere hartua izan baita behin baino gehiagotan. Imanol Unzurrunzaga

Eta oroitzea ez da Adanengan ezagutu zuelako **edota** beste nonbait gorputz honen bizitza baino lehen **edota** gorputz honetan ezartzeko moldatzen ari zela. Imanol Unzurrunzaga

Beraz, kolorea sumatzen dugunean, aldi berean eta sentimen beraren bidez pertzepzio ekintza sentitzen ez badugu, **edota** soinua entzutean gure entzumena entzuteko gauza ez bagara, **edota** arrosa usaintzean gure usaimena usnatzen ez badugu, **edota** zerbait dastatzerakoan dastamenaren zaporerik ahoan sumatzen ez badugu, **edota** zerbait ukitzerakoan ukimena ukitu ezin badugu, argi dago bost sentimen hauek ezin sentitu dituela ezein sentimenek, hauek objektu korporal guztiak sentitzeko gai izan arren. Imanol Unzurrunzaga

Erretinako azken mailetako zelula batzuk beheragoko mailako zelula askori daudela lotuta, eta horietako bakoitzak ehunka **edota** milaka hartzaile irudikatzen dituela, horrenbestez, guztira. zinema mutuaren garaiko zinemagile handiek ederki jakin zuten handitze horren berezitasuna ikusten eta erabiltzen, telefono bat monumentu bihurtuz (Epstein) **edota** labezomorro bat elefantea baino handiago eginez (Eisenstein). Josu Zabaleta

Ez da bere kontua, bera zertan dabilen **edota** norekin dabilen ere nire kontua ez den bezala. Mirentxu Larrañaga

Iritsi gara ondorio ziur batzuetara: **edota** zoritxarreko istripuren bat gertatu zen Madame Deluc-en sabaipean, **edota** maitale batek hil zuen neska Barrière du Rouleko arboladian, **edota** zenduaren lagun min eta ezkutukoren batek. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

bat edota (30); **da edota** (9); **den edota** (7); **edota agian** (12); **edota antzeko** (12); **edota bera** (6); **edota bere** (33); **edota beste** (66); **edota beste edozein** (7); **edota bestela** (20); **edota bestelako** (8); **edota bi** (10); **edota edozein** (7); **edota etxe** (6); **edota etxeko** (6); **edota euskal** (9); **edota ez** (26); **edota giza** (7); **edota gizarte** (7); **edota gure** (15); **edota gutxienez** (7); **edota haiek** (6); **edota haren** (13); **edota herri** (8); **edota hura** (6); **edota lan** (9); **edota nire** (7); **edota nola** (6); **edota pertsona** (6); **edota zer** (6); **edota zerbait** (8); **egin edota** (12); **egiteko edota** (7); **gabe edota** (6); **izan edota** (6); **zen edota** (7)

---

edotariko *izlag* edozein motatakoa.

Elurrez pintakatuta, zakar eta traste pila zegoen: enkofratzeko oholak, isolatzeko plantxak, sofa hondatu eta aulki kojo ipurdibako batzuk, **edotariko** egurrak, mailu elektriko bat, kartoiak, oihalak... Pablo Sastre

Beste bat urteroko jeloskorkeria atakeak jota zegoen, horrek ekarri ohi zituen **edotariko** ondorio ezagunekin. Jon Alonso

Jesus Galindez ehiztariak naziei buruzko **edotariko** informazioak jasotzen ditu, automotor zahar baten gainean hara eta hona ibiliz. Edorta Jimenez

Asmamenaren lasterketan Andres Untzain Habanako portuan ikusten dut, eta hor ikusten ditut orduko ontzi handiak, horien mastetan **edotariko** banderak direla. Edorta Jimenez

Bizkor eta **edotariko** lekuetan idatziak direla, hala nola, geltokietan, autobusetan eta baita katedralen batean ere. Edorta Jimenez

---

edozein *(orobat **edozoin** g.er.)* 1 *mugatz* dagokion izenaren ezkerrean ezartzen den hitza, honek aditzera ematen dituen zeretako bat, berdin da zein, adierazten duena. ik **edozer**. (ikuz beheko konbinatorian edozein mugatzailearen agerraldi maizkoenak)

2 (izenordain gisa) ik **nornahi; zeinahi**.

Izen batek asko lotzen du: txakurra **edozein** da, baina Lixta ez, Lixta ez da edozein. Iñaki Segurola

Telebistan agertzen den **edozein** da nor. Andoni Egaña

Are, liburuko hizkuntza bera ere kasualitate hutsa da, munduan dauden milaka hizkuntzatako **edozein** izan litekeelako. Jon Alonso

Gu edozer gauza garela alegia, **edozein** garela (horixe da guretzat "jende" izatea: deus edo inor ez izatea), zerbait izan baino lehen, zernahi eratako -logo ohartuak bilakatu baino lehen. Iñaki Segurola

Delitua **edozein** dela ere, bi edo hiru lekukoren aitorpenaz bakarrik erabakiko da auzia. Elizen arteko biblia

Edozein delarik ere emaztearen botoa edo barau egiteko zin-hitza, senarrak bihurtzen du baliozko ala baliogabeko. Elizen arteko biblia

Edozeinek pentsa lezake gogo argiko eta zuhurreko gizarte libre alai batean bizi garela. Patziku Perurena

Jakina denez, larritasunean **edozeinek** duelako "gurutze santuaren" eginez bataiatzeko ahaltasuna. Ramon Saizarbitoria

Bi hauetariko **edozeinek** eman ziezaiekeen sua hilkorrei. Xabier Amuriza

Homeroren garaikideak endekatze etsenplu harrigarriak ziren: hamar behar ziren harkaitz bat jaso edo istilu bati hasiera emateko: Troiako heroietako **edozeinek** berak bakarrik egin zezaken gauza. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

aldeko edozein (8); **arrazoia edozein** (8); **baina beste edozein** (9); **baina edozein** (70); **baina ez edozein** (18); **baita edozein** (14); **bat edozein** (15); **bertze edozein** (40); **beste edozein** (846); **beste edozein baino** (14); **beste edozein bezain** (11); **beste edozein bezalakoa** (15); **beste edozein egunetan** (9); **beste edozein gauza** (19); **beste edozein lekutan** (13); **beste edozein tokitan** (12); **buruzko edozein** (19); **da edozein** (93); **dagoen edozein** (18); **daiteke edozein** (10); **daitekeen edozein** (8); **dela edozein** (12); **den beste edozein** (15); **den edozein** (68); **dira edozein** (27); **dituen edozein** (9); **du edozein** (26); **duen edozein** (99); **duen edozein gauza** (9); **dugu edozein** (13); **dugun edozein** (8); **dut edozein** (8); **dute edozein** (9); **duten edozein** (14); **edo beste edozein** (117); **edo edozein** (35)

edozein aitzakia (35); **edozein aitzakiarekin** (14); **edozein akordio** (8); **edozein aldaketa** (14); **edozein alderdi** (8); **edozein arazo** (12); **edozein arlotan** (13); **edozein arrazoi** (8); **edozein arrisku** (8); **edozein aukera** (16); **edozein baino** (22); **edozein bazterretan** (33); **edozein bezain** (15); **edozein bezalakoa** (15); **edozein bide** (13); **edozein dela** (73); **edozein dela ere** (46); **edozein delarik** (43); **edozein delarik ere** (35)

edozein egoeratan (27); **edozein egunetan** (54); **edozein ekimen** (8); **edozein ekintza** (17); **edozein emakume** (11); **edozein emakumek** (11); **edozein enpresa** (10); **edozein erabaki** (17); **edozein eratako** (11); **edozein etxetan** (13); **edozein euskaldunek** (9); **edozein gai** (18); **edozein gairi** (19); **edozein gairi buruz** (14); **edozein galdera** (8); **edozein garaitan** (11); **edozein gauza** (205); **edozein gauzak** (13); **edozein gauzarekin** (9); **edozein gauzaren** (21); **edozein gauzari** (11); **edozein gauzatan** (9); **edozein gaztek** (10); **edozein gertakari** (8); **edozein gisaz** (39); **edozein giza** (14); **edozein gizaki** (10); **edozein gizakik** (8); **edozein gizon** (19); **edozein gizonek** (9); **edozein gorputz** (11); **edozein herri** (22); **edozein herrialde** (11); **edozein herrialdetan** (12); **edozein herritako** (8); **edozein herritan** (22); **edozein herritar** (10); **edozein hiri** (16); **edozein hitz** (14); **edozein hizkuntza** (16); **edozein hizkuntzatan** (15); **edozein huskeriagatik** (10)

edozein ideia (11); **edozein izan** (26); **edozein izan zitekeen** (9); **edozein izanda** (65); **edozein izanda ere** (61); **edozein izanik** (32); **edozein izanik ere** (25); **edozein kasutan** (127); **edozein kasutan ere** (14); **edozein kolore** (8); **edozein laguntza** (10); **edozein lan** (19); **edozein lanetan** (10); **edozein langile** (10); **edozein lege** (16); **edozein leku** (18); **edozein lekutan** (115); **edozein lekutara** (23); **edozein liburu** (10); **edozein mementotan** (14); **edozein modutan** (202); **edozein modutan ere** (31); **edozein modutara** (27); **edozein moduz** (10); **edozein momentutan** (49); **edozein motatako** (32); **edozein mugimenduk** (9)

edozein objektu (10); **edozein ordutan** (38); **edozein partida** (8); **edozein pertsona** (16); **edozein pertsonak** (14); **edozein pertsonaren** (11); **edozein preziotan** (13); **edozein proiektu** (13); **edozein proposamen** (10); **edozein sistema** (8); **edozein talde** (18); **edozein taldek** (12); **edozein talderi** (11); **edozein tenoretan** (11); **edozein toki** (9); **edozein tokitan** (68); **edozein tokitara** (12); **edozein txokotan** (15)

edozein une (11); **edozein unetan** (180); **edozein zela** (20); **edozein zela ere** (17); **edozein zuhaitz** (8)

egun edozein (9); **emaitza edozein** (11); **ere edozein** (20); **eta beste edozein** (53); **eta edozein** (329); **eta edozein gauza** (15); **eta edozein unetan** (9); **eta ez edozein** (15); **europako edozein** (11); **euskal herriko edozein** (9); **ez beste edozein** (22); **ez da edozein** (19); **ez edozein** (60); **ez zen edozein** (10); **gero edozein** (14); **hau edozein** (9); **herriko edozein** (13); **hori edozein** (21); **horietako edozein** (14); **ia edozein** (18); **inguruko edozein** (8); **kanpoko edozein** (8); **munduko beste edozein** (15); **munduko edozein** (53); **nahi duen edozein** (15); **nahiz beste edozein** (11); **nahiz edozein** (8); **orain edozein** (8); **telefona edozein** (8); **telefona edozein tenoretan** (8); **urteko edozein** (8); **zela edozein** (8); **zen beste edozein** (8); **zen edozein** (32); **zion edozein** (8); **ziren edozein** (8); **zitekeen edozein** (8); **zuen edozein** (38)

beste edozeinek (35); **beste edozeinek baino** (10); **beste edozeinen** (10); **beste edozeini** (17); **edozeinek baino** (15); **edozeinek egin** (13); **edozeinek ikusita** (8); **edozeinek irabaz** (16); **edozeinek irabaz dezake** (8); **edozeinetara ere** (20); **eta edozeinek** (17)

---

edozeinbeste *adlag* ugari.

-Barka ezazu ateraino ez laguntzea, **edozeinbeste** egiteko daukat mahai gainean oraindino... Koldo Izagirre

---

edozelan 1 *adlag* edonola.

Nik neure estudiante denboran **edozelan** garbitzen nuen gorputza: marka bako txanpuaz, lagartoz, mistolaz... Jon Arretxe

Kukulumuxu jarri zinen zeu ere, otzarak ireki eta arropak **edozelan** sartzen hasi zinen, Dolors amorrarazteko. Koldo Izagirre

Jo eta akabatu egingo nituzke lazun higuingarri hauek guztiak, **edozelan** akabatuta ere, benetan... Paddy Rekalde

Beti berdin, ezagutzen ez den tokian **edozelan** ibili nahi. Joxemari Urteaga

2 ***edozelan ere*** *(orobat **edozelan be** g.er. eta **edozelanbe** g.er.)* edonola ere, dena dela.

Edozelan ere, neskalagun ohiak esaten zidan bezala, ume aurpegia izan dut beti. Iban Zaldua

Edozelan ere, etxeak hantxe eusten zion, espekulazioaren tiraniari iheska dabilen amets baten moduan. Urtzi Urrutikoeetxea

Edozelan ere, hasierako asmoari eusten diote. Berria - Gaiak

Edozelan ere, erlijioak sarritan banakoari aurreztu egiten dio bere neurosi partikularra sortu beharra. Markos Zapiain

Edozelan ere, eskolan sartzeko adinik ere ez zuen. Berria - Harian

Baina eurak leku guztietan egon ziren -hala iruditzen zitzaidan gutxienez une hartan-, **edozelan ere** han egon ziren aitari agur esan genionean. Urtzi Urrutikoetxea

Lehenbiziko zeregin hori burutu ahal izateko, **edozelan ere**, estreinako premia ohetik altxatzea izango litzateke eta horretarako ere indar nahikorik ez daukala konturatu da. Sonia Gonzalez

Esango nuke ezpainak ere zuriz margotuta zituela, zuri urtsu batez, hori ere noizbait modan egon baitzen, baina, **edozelan ere**, oso sentsualak izaten jarraitzen zuten. Ramon Saizarbitoria

-Ez dakit -erantzun zuen Peterrek artega-, baina nahiko gaztea, **edozelan ere**. Julen Gabiria

Berehala desestimatu zuen ideia hori, harria erretzea beti izan delako prozesu nekagarria; eta errentagarritasun gutxikoa, **edozelan ere**. Unai Elorriaga

3 ***edozelango*** edonolakoa.

Ez ziren **edozelango** giltzatakoak; pizkailua ere bazuten! Edorta Jimenez

Eta ez **edozelango** galtzailea. Edorta Jimenez

Ordea, ez dugu **edozelango** ituna egingo. Berria - Ekonomia

-Hatsa ere ez duk ba **edozelangoa** . Urtzi Urrutikoeetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baina edozelan (4); **edozelan be** (10); **edozelan ere** (163); **eta edozelan** (3)

---

edozelanbe ik **edozelan 2**.

---

edozelango ik **edozelan 3**.

---

edozenbat *mugatz* nahi adina, ugari.

A, bai, zure inmolazioa gertatu aurretik, **edozenbat** oinaze jasan beharko duzu! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egintzaren existentziak, diotenez, nahitaez frogatzen du badela hor egile bat, baina ez digu frogatzen hor egile asko denik, eta ez du ardura bi, hiru, hogei edo **edozenbat** jainko direla onartu nahi izateak. Xabier Kintana

Portugaleteko Udalean zein botikarien kolegioan **edozenbat** gestio egin zituen eta, lortu zuen Mentxuk botika zabaltzea. Josu Landa

Eta horrelakoak, ezbairik gabe, **edozenbat** egiten dituzte ezjakinek, jakintsuen burla eta haserrerako. Imanol Unzurrunzaga

Helburua bat da eta hori lortzeko bideak **edozenbat** . Berria - Gaiak

---

edozer *(1367 agerraldi, 215 liburu eta 327 artikulutan; ETCn 12.233 agerraldi)* **1** *mugatz* edozein.

Edozer gauza, irri hura baino eramangarriagoa! Koro Navarro

Askok txarrerako hartzen dute guai kontu hori, eta plantta hutsa dela, eta berdintsu diola guaia izan, edo mixiolaria, pijoa, abertzalea edo beste **edozer** gauza. Iñaki Segurola

Edozer gauza hobe zen Hennerekin bizitzea baino. Koro Navarro

Edozer gauza aginduta ere, Jaunaren borondatearen arabera agindua zela uste zuten. Askoren artean

Edozer gauzak min ematen zizun. Jon Muñoz

Edozer gauzarekin atera daiteke, edozerekin; harekin ez dut jakiten inoiz zeri eutsi. Eskarne Mujika

Edozer gauzaz salatzen dute elkar. Koro Navarro

Beste horrenbeste egingo duzue herritarrak galdu eta zuek aurkitutako asto, soingaineko nahiz beste **edozer** gauzarekin ere. Elizen arteko biblia

Edozer gauzagatik negarrez ari da, milika bat, itxura baizik ez dena. Josu Zabaleta

Nahi zuena esan zezakeen, **edozer** irain onartuko genion. Koldo Izagirre

Une batez badirudi xerra gurineztatu bat, galleta blaituak, **edozer** txerrikeria botako dietela neskek mutilei, mendeku gisa. Xabier Mendiguren Elizegi

Nekez sinistuko dugu egia neska itsusi baten ahotik, eta erraz asko irentsiko **edozer** asmakeria neska eder batek esan badu. Matías Múgica

Eta **edozer** aitzakiarekin zalgurdi bat hartuta alde egin beharrean, gizonaren atzetik joan nintzen nire nagusia ikustera. Matías Múgica

Txirritak ere, bere denborako gizonik zarpail eta argienetakoa baitzen, ez zuen **edozer** moduz sinetsi Olloki xarraren heriotzarik. Iñaki Segurola

2 (izenordain gisa) edozein gauza.

Edonor, **edozer** , nehor edo guti. Herria

Edozer bihurtzen da, negarrerako bezala, pozerako aitzakia. Arantxa Iturbe

Hitz solteak, datu nahasiak, eta **edozer** esanda ere, alferrikakoa zela adierazten zidan barne-zimiko urrutiko, oso urrutiko bat. Anjel Lertxundi

Nik ez nekien zeinen alde zegoen hura, piztia harengandik **edozer** espero baitzitekeen, baita poliziaren sator izatea ere. Juan Kruz Igerabide

Arropatako patrikak **edozer** garraiatzeko erabiltzen zituen. Harkaitz Cano

Dena den, bake negoziazioetan **edozer** negoziatu ahal izango da, autodeterminazioa eta independentzia barne?, **Edozer** esanarazten dit halakoetan, zeharo aztoratzen bainau. Berria - Harian

Bai, denak du errealitatearen antza, **edozer** gerta daiteke gizabanakoarekin. Jose Morales

Edozer bota daiteke, beraz, eta edozein tokitan. Iñaki Segurola

Nahiago zuen beste **edozer** galdu balu! Anton Garikano

Berarekin nengoenean, ordea, hain nengoen beldurtuta egin edo esaten nuen **edozer** gaizki hartu, eta desengaina nezakeelako, non [...]. Ramon Saizarbitoria

Edozer edonola justifikatzeko oratorioak leku hartu dio beste guztiari. Hasier Etxeberria

Gobernuak **edozer** egingo du boskimanoak euren lurretatik bidali ahal izateko. Berria - Gaiak

Beste **edozer** egitea ilegala da. Fernando Morillo

Zeren **edozer** , aldaturik, bere mugetatik irten badadi, horrek berehala aurrez izandako bestearen heriotza baitakarke. Xabier Amuriza

Zerbait egin behar zuen, **edozer** , bere aitaren gizatasun faltaren ordainetan. Fernando Rey

Edozer izanda ere, egin dezagun aurrera absurdo gaitzagorik gerta ez dakigun. Imanol Unzurrunzaga

Edozer zuen jaki kutun -ogi eta gurinez egindako budina, mahaspasaduna, patata-orezko pasteltxoak, gazta eta eskabetxea, eltzekariak eta erregosiak-, amak gertaturiko **edozer** . Mirentxu Larrañaga

Edozer zuen jaki kutun -ogi eta gurinez egindako budina, mahaspasaduna, patata-orezko pasteltxoak, gazta eta eskabetxea, eltzekariak eta erregosiak-, amak gertaturiko **edozer** . Mirentxu Larrañaga

Gauzak jaurtitzen dizkiot -lisaburdina, irabiagailua, zartagina, **edozer** -. Xabier Olarra

Aita santuarekin eta Erromarekin zerikusia zuen **edozer** arbuiagarria eta zikina zela uste zuena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beraz, **edozer** , ez bada dirudiena, ez da egiazkoa. Imanol Unzurrunzaga

Jende horrek garia edo beste **edozer** larunbatean edo beste jaiegunetan saltzeko badakar, ez diogu ezer erosiko. Elizen arteko biblia

Eskueran aza edukiz gero, aza lapikora, edo esnea, edo urdaiazpikoa, edo ilarrak, hitz batean, **edozer** , aski zuen prestaturikoa bero egotea, beti izango zuen-eta gusturen bat edo beste. Jose Morales

Ondo zehaztutako eta ondo aukeratutako oinarriari eransten dizkiogu osagai horiek; ez **edozer** edozeri, edonola eta edonoiz. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina edozer (16); **baina edozer gauza** (9); **batean edozer** (3); **beste edozer** (82); **beste edozer baino** (4); **beste edozer gauza** (24); **beste edozer gauzaren** (4); **beste edozer izan** (4); **da edozer** (6); **da edozer gauza** (4); **dago edozer** (3); **daitekeen edozer** (6); **den beste edozer** (5); **den edozer** (17); **den edozer gauza** (4); **dezakeen edozer** (5); **duen edozer** (15); **dugun edozer** (3); **dute edozer** (5); **dute edozer gauza** (3); **duzun edozer** (3); **duzun edozer gauza** (3); **edo beste edozer** (21)

edozer aitzakiarekin (3); **edozer baino** (14); **edozer behar** (3); **edozer dela** (5); **edozer dela ere** (3); **edozer egin** (21); **edozer eginda** (6); **edozer eginda ere** (6); **edozer egingo** (17); **edozer egingo nuke** (3); **edozer egitea** (5); **edozer egiteko** (61); **edozer egiteko gai** (14); **edozer egiteko gauza** (8); **edozer egiteko moduan** (3); **edozer egiteko prest** (25); **edozer egiten** (5); **edozer egitera** (4); **edozer emango** (6); **edozer emango nuke** (3); **edozer esan** (3); **edozer esanda** (3); **edozer esanda ere** (3);

edozer espero (8); **edozer eta** (5); **edozer ez** (3); **edozer gauza** (336); **edozer gauza baino** (3); **edozer gauza da** (4); **edozer gauza dela** (4); **edozer gauza egin** (13); **edozer gauza egingo** (9); **edozer gauza egitea** (3); **edozer gauza egiteko** (25); **edozer gauza egiten** (8); **edozer gauza emango** (8); **edozer gauza emateko** (3); **edozer gauza esan** (5); **edozer gauza esango** (4); **edozer gauza espero** (4); **edozer gauza gerta** (31); **edozer gauza izan** (6); **edozer gauza lor** (3); **edozer gauza nahiago** (5); **edozer gauza pasa** (3); **edozer gauza zen** (4); **edozer gauzagatik** (3); **edozer gauzak** (15); **edozer gauzarekin** (6); **edozer gauzaren** (10); **edozer gauzaren gainetik** (4); **edozer gauzari** (7); **edozer gauzatarako** (4); **edozer gauzaz** (4); **edozer gerta** (39); **edozer gerta daiteke** (27); **edozer gerta daitekeela** (3); **edozer gertatu** (3); **edozer gertatuta** (13); **edozer gertatuta ere** (13); **edozer gertatzen** (8); **edozer gertatzen dela** (6); **edozer huskeriagatik** (3); **edozer izan** (13); **edozer izan daiteke** (4); **edozer lor** (3); **edozer lortzeko** (3); **edozer moduz** (3); **edozer saltzen** (3); **edozer zela** (3)

ere edozer (4); **eta edozer** (54); **eta edozer gauza** (16); **eta edozer gerta** (7); **ez beste edozer** (6); **ez den edozer** (3); **ez edozer** (3); **futbolean edozer** (3); **hartan edozer** (3); **honetan edozer** (3); **hori lortzeko edozer** (3); **horretarako edozer** (3); **ia edozer** (10); **ia edozer gauza** (4); **izan daitekeen edozer** (3); **kasik edozer** (3); **lortzeko edozer** (4); **nahiz beste edozer** (4); **nik edozer** (4); **nik edozer egingo** (3); **nuen edozer** (3); **zaion edozer** (3); **zegoen edozer** (3); **zen edozer** (5); **zen edozer gauza** (3); **zezakeen edozer** (4); **zuen beste edozer** (4); **zuen edozer** (7); **zuten edozer** (3)

beste edozerekin (3); **beste edozeren** (10); **beste edozeren gainetik** (7); **beste edozergatik** (3); **beste edozeri** (5); **beste edozerk** (8); **beste edozerk baino** (3); **beste edozertan** (6); **beste edozertarako** (4); **da edozertarako** (3); **den edozeri** (5); **den edozeri tiro** (3); **edozeren aurka** (3); **edozeren aurrean** (3); **edozeren gainetik** (14); **edozeri aurre** (6); **edozeri aurre egiteko** (5); **edozeri buruz** (4); **edozeri tiro** (4); **edozerk baino** (4); **edozerk balio** (7); **edozerk balio du** (3); **edozerk eragin** (3); **edozertan eta** (3); **edozertan laguntzeko** (3); **edozertara ere** (6); **edozertarako balio** (6); **edozertarako ere** (6); **edozertarako eta** (4); **edozertarako gai** (9); **edozertarako gai da** (5); **edozertarako gauza** (6); **edozertarako prest** (27); **edozertarako prest nengoen** (3); **edozertaz hitz** (14); **edozertaz hitz egin** (6); **edozertaz hitz egiteko** (4); **edozertaz hitz egiten** (3); **eta edozeren** (4); **eta edozeri** (3); **eta edozertara** (3); **eta edozertarako** (5); **eta edozertaz** (5); **mugitzen den edozeri** (4); **zen edozeri** (3)

---

edozoin ik **edozein**.

---

edredoi 1 *iz* ohe estalki bigungarriduna.

Ohe gainean zetzan eta **edredoiaz** babesten zuen bere gorputza. Aingeru Epaltza

Emazteak gehiago kuzkurtu ditu hankak **edredoiaren** azpian. Jokin Muñoz

Edredoi bat zirudien beroki urdin polit hura. Monika Etxebarria

Ikuskari batean agertu zitzaizkidan aitonaren txaleko alaia eta **edredoi** bat zirudien buru iletsua, kandelaren argitan irribarrez. Koro Navarro

Edredoiaren zorroa satinezkoa zen. Fernando Rey

Ez zaie uzten ohe bigunetan lumazko **edredoiekin** eta hiru burkorekin lo egiten. Oskar Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ohe gainean **edredoi** gorria. Urtzi Urrutikoetxea

Kristinak bizkar gainean ezarritako **edredoi** kolore anitzaren puska luzeena herrestan zeraman. Aingeru Epaltza

Bera gelan, ohean etzanda, agian, irakurtzen, edo musika entzuten, musika lasaia, **edredoi** zuriaren usain garbiarekin batera nahasten dena. Berria - Kultura

Oihal tornasolatuaz jantzi nuen koltxoia eta gainean **edredoi** egin berria jarri genuen. Jasone Osoro

Kotoizko **edredoiak** dira ohean asmaren kontrako babeslerik onenak. Berria - Gaiak

Lumazko **edredoi** bero bat. Karlos Zabala

Patchworkezko **edredoia** lurrean dago erdi jausita eta Eberen gorputz uzkurtua alferrik saiatzen da izarapean beroa topatzen. Sonia Gonzalez

3 (hitz elkartuetan)

Izarak eta **edredoi**-azala josi behar nituen lehenbizi, gortinak eta burdinazko bionboarentzako estalkia hurrena. Jasone Osoro

---

edredoidun *izond* edredoia duena.

Ohe bakarra lorezko **edredoiduna**, arropa meta galanta gainean zuena. Aingeru Epaltza

---

edukatibo *izond* hezkuntzari, heziketari dagokiona.

Eske bestela fusilatzekoa zuan tipo hori, horrek ez dik jarraitzen sistema **edukatiboa**! Pako Aristi

Ikastolako talde **edukatiboa**. Herria

---

edukatu, eduka, edukatzen 1 du *ad* hezi.

Azienda hilen segizio hark **edukatua** nauzu ni, jende bizien segizioak sekulan ez bezala. Patziku Perurena

Zien haurrer etsenplu una emaiten, hek Jainkoaren beldurtasunian eta haren manamendien **konplimendian** edukatzen tuzienak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (era burutua izenondo gisa) hezibide onekoa.

Uribetarren etxean adibidez kapitain aleman bat sartu zuten, hegazkinlaria, errepublikarrak ziren Uribetarrak, alemana gizon **edukatua** omen zen, atsegina eta adeitsua, txokolatea eta tabakoa eramaten zien askotan. Mikel Hernandez Abaitua

Oso **edukatuak** ziren, eta zerbait esan nahi zidatela konturatzen nintzen. Josu Zabaleta

Jendea nahasteko baino balio ez duten manera **edukatu** haiek erabiliz. "Zuri zer axola zaizu?" baino erantzun **edukatuagoa** iruditzen zitzaidalako, galdera hori egiten jarraitzen duenak erantzun **edukaturik** ez duela merezi pentsatzen dudan arren. Pello Lizarralde

Interes eza estaltzeko amarru bat baino ez zen, erdeinua disimulatzeko modu **edukatu** bat guk irentsi egin duguna etengabe. Berria - Kultura

---

edukatzaile *iz* hezitzailea.

Hiriko berrogeita zazpi **edukatzailek** segurtatzen dute praktika hori, seguritate neurriak zorrozki errespetatuz. Herria

---

edukazio 1 *iz* hezitzea, heziera.

Seme-alabekin mintzatzen zuan, seme-alaben **edukazioaz** arduratzen zuan. Jon Alonso

Antiklerikala nauk; **edukazioaren** aldetik, ostera, katolikoa nauk eta, hamaikatxo sermoi entzunda nagok. Edorta Jimenez

Edukazio moderno guziari, eunukoen baikorkeria besterik ez dario. Patziku Perurena

Ikastetxeak bere alumnoen **edukazioa** begiratu behar zuela, ez elementu guztiz okerren zuzenketa. Joseba Sarrionandia

Bainan ikasle bat, **edukazioneko** ministeritzatik kooperazioneko ministeritzarat pasatzen baldin bada. Menane Oxandabaratz

2 heziera, gizalegea.

Gure amak ez zielako irakatsi aitari zor zaizkion **edukazioa** eta errespetua. Pello Lizarralde

Andere zaharraren orduko eguna burtzoro batean iragan zen, negarrez, galdezka eta semeari bereziki eman zion **edukazioaz** zalantzaz itoa. Itxaro Borda

Edukazioak eskatzen dituen minimoez pentsatzen duzu. Lourdes Oñederra

Pentsatzeko beharrik ez duten esaldi eginak, **edukazioak** eginda ematen dizkigunak. Lourdes Oñederra

Apaiz hori sutan jarri zen eroa bezala; han hasi zen oihuka batere **edukaziorik** ez dutenak bezala, hildakoaren ondoan. Pello Lizarralde

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Edukazio ona kanpotarrentzat gordetzen genuen. Joseba Urteaga

Father Bill lasaiagoa zen, arras delikatua, **edukazio** on-onekoa. Karlos Zabala

Eta **edukazio** txarrekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

-**Edukazio** onekoa ote da zerbaitetan gailentzea? Julen Gabiria

Gaurko gazteriaren **edukazio** txikia eta axolagabekeriaren kontra garai bateko bizimodua goretsi behar zela. Josu Zabaleta

Edukazio osoz jo zuten atea. Julen Gabiria

Tootlesek pauso bat eman zuen aurrera, **edukazio** handiz. Julen Gabiria

Balizko **edukazio** onarekin, gaiztakeria. Hasier Etxeberria

4 (hitz elkartuetan)

Ordura arte politikoen artean ibili eta gero, oso bestelakoak baitziren nik ikasitako **edukazio** arauak. Jasone Osoro

Ez dut ulertzen zergatik bihurtu behar den ezkortasuna, antipatia eta **edukazio** eza, metodo eta bide. Hasier Etxeberria

Sailburu horrek arazoren bat edo beste dauka bere dardararekin eta bere **edukazio** faltarekin. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edukazio handiz (3); **edukazio onekoa** (3); **edukazio onez** (3); **eta edukazio** (4)

---

eduki[1], eduki, edukitzen *(**4041** agerraldi, **242** liburu eta **1197** artikulutan; ETCn **407.314** agerraldi)* **1** du *ad* norbaitek zerbait -eskuarki besterendu daitekeen zerbait- halako atxikitasun batez edo denbora jakin batez izan; egoera berean edo bere hartan izan, iraunarazi edo gorde; bere baitan izan. (ikus beherako konbinatorian eduki aditzaren agerraldi maizkoenak)

2 *gogoan eduki*

Zer esan zion, hori ez dauka **gogoan**. Edorta Jimenez

Ordutik **gogoan** neukan bulegoa baino hagitzez dotoreagoa zen oraingoa, aferak ongi zihoazkion seinale. Aingeru Epaltza

Etxerakoan, *Grateful Dead*en CDak jarri nituen autoan, kontzertuko giroa eta oroitzapena ahalik eta luzaroen **gogoan** eduki zitzan. Xabier Olarra

Sortetxea, Heraitze, herria, Baigura, jendeak eta gauzak, denak hemen dauzkat **gogoan,** Sahagúneko bakardadean ene gana etorriak. Piarres Aintziart

3 *kontuan eduki* *(**58** agerraldi, **28** liburu eta **10** artikulu)* A

ukera guztiak **kontuan eduki** behar ditugu. Hortaz, **kontuan eduki** beharko da zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzen atzean interes ekonomiko itzelak daudela. Harkaitz Cano

Hortaz, interesen eraginaz gainera, ekonomian oso **kontuan edukitzekoa** da ideia eta teoria "praktikoek" duten eragina. Iñaki Heras

Kontuan eduki beharreko alderdi garrantzitsuenak ordenan jarri ondoren. Rafa Egiguren

-Kontuan eduki zure aita pertsona ezaguna izan zela -esaten zion andre Leonardak enfasia jarriz. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

arazoak eduki (6); **arazorik eduki** (16); **argi eduki** (28); **argi eduki behar** (16); **arte eduki** (14); **artean eduki** (14); **asko eduki** (9); **atxilotuta eduki** (10); **aukera eduki** (46); **aukera eduki zuen** (10); **aukerarik eduki** (6); **aurrean eduki** (19); **bahituta eduki** (6); **baimena eduki** (6); **baina eduki** (11); **bakarrik eduki** (7); **bakartuta eduki** (6); **barruan eduki** (11); **bat eduki** (158); **bat eduki behar** (33); **bat eduki beharko** (7); **bat eduki eta** (10); **bat eduki nahi** (14); **bat eduki nuen** (6); **bat eduki zuen** (13); **batean eduki** (7); **batek eduki** (12); **baten eduki** (6); **batzuk eduki** (11); **begira eduki** (10); **bera eduki** (7); **bere eduki** (8); **bertan eduki** (6); **besoetan eduki** (8); **besterik eduki** (10); **besterik eduki behar** (6); **beti eduki** (24); **beti eduki dut** (6); **bezala eduki** (9); **da eduki** (7); **denbora eduki** (9); **dirua eduki** (7); **du eduki** (18); **dut eduki** (6); **edo eduki** (10); **eduki ahal** (56); **eduki ahal izango** (13); **eduki ahal izateko** (20)

eduki arren (79); **eduki arte** (18); **eduki baitzuen** (8); **eduki balu** (6); **eduki behar** (459); **eduki behar baita** (6); **eduki behar da** (71); **eduki behar dela** (7); **eduki behar dira** (13); **eduki behar ditu** (14); **eduki behar ditugu** (6); **eduki behar diztute** (7); **eduki behar du** (40); **eduki behar duela** (9); **eduki behar dugu** (29); **eduki behar dut** (6); **eduki behar dute** (18); **eduki behar dutela** (12); **eduki behar zuen** (24); **eduki beharko** (84); **eduki beharko du** (6); **eduki beharko dute** (7); **eduki beharko luke** (9); **eduki beharko lukete** (13); **eduki beharra** (25); **eduki beharreko** (16); **eduki bera** (6); **eduki dezagun** (12); **eduki dezake** (23); **eduki dezakeen** (23); **eduki dezakete** (12); **eduki dezaketen** (7); **eduki dezan** (16); **eduki dezaten** (9); **eduki ditu** (9); **eduki ditut** (12); **eduki dituzte** (11); **eduki dituzten** (7); **eduki ditzake** (8); **eduki ditzakete** (8); **eduki du** (36); **eduki duela** (12); **eduki duen** (27); **eduki duena** (6); **eduki dugu** (14); **eduki dut** (40); **eduki dute** (33); **eduki duten** (21)

eduki edo (15); **eduki edo ez** (6); **eduki ere** (19); **eduki eta** (124); **eduki eta gero** (8); **eduki ez** (83); **eduki ez arren** (8); **eduki ez eta** (6); **eduki ezazu** (16); **eduki ezean** (18); **eduki ezin** (13); **eduki gabe** (63); **eduki genuen** (20); **eduki gintuzten** (9); **eduki gura** (10); **eduki izan** (49); **eduki izan balu** (7); **eduki izana** (18); **eduki jakin** (6); **eduki lezakeen** (7); **eduki nahi** (219); **eduki nahi ditu** (8); **eduki nahi du** (11); **eduki nahi dute** (8); **eduki nahi izan** (22); **eduki nahi izaten** (8); **eduki nahi nuen** (6); **eduki nahi nuke** (6); **eduki nahi zuen** (9); **eduki nahiko** (7); **eduki ninduen** (19); **eduki ninduten** (15); **eduki nituen** (13); **eduki nuela** (6); **eduki nuen** (54)

eduki ohi (28); **eduki omen** (7); **eduki ondoren** (43); **eduki oroz** (14); **eduki oroz abstraitzen** (13); **eduki ostean** (16); **eduki ote** (13); **eduki politikoa** (7); **eduki uste** (14); **eduki zezakeen** (19); **eduki zezaketen** (7); **eduki zezan** (13); **eduki zituela** (6); **eduki zituen** (62); **eduki zituzten** (42); **eduki zitzakeen** (7); **eduki zuela** (21); **eduki zuen** (270); **eduki zuena** (6); **eduki zuenean** (7); **eduki zutela** (12); **eduki zuten** (135)

egun eduki (7); **egunez eduki** (16); **egunez inkomunikatuta eduki** (6); **eragina eduki** (8); **ere eduki** (42); **eskuetan eduki** (6); **eskura eduki** (13); **eta eduki** (73); **etxean eduki** (21); **ez du eduki** (11); **ez eduki** (41); **ez eduki arren** (11); **ez zuen eduki** (11); **ezagutzaren eduki** (12); **ezagutzaren eduki oroz** (11); **ezer eduki** (16); **ezer eduki nahi** (7); **ezin eduki** (16); **gabe eduki** (12); **gainean eduki** (11); **garbi eduki** (28); **garbi eduki behar** (13); **gehiago eduki** (28); **gogoan eduki** (40); **gogoan eduki behar** (14); **gordean eduki** (9); **gordeta eduki** (14); **gutxiago eduki** (8); **guztiak eduki** (7); **guztiek eduki** (6); **han eduki** (12); **handia eduki** (31); **handia eduki behar** (8); **handiagoa eduki** (16); **handiak eduki** (7); **handiena eduki** (6); **handirik eduki** (11); **hantxe eduki** (8); **hau eduki** (8); **hilabetez eduki** (6); **hori eduki** (16); **horrek eduki** (7); **horrela eduki** (6)

ikusteko aukera eduki (6); **inkomunikaturik eduki** (7); **inkomunikatuta eduki** (13); **inoiz eduki** (13); **inoiz eduki ez** (6); **isilik eduki** (6); **itxita eduki** (31); **itxita eduki behar** (7); **itxura eduki** (7); **kartzelan eduki** (8); **konfiantza eduki** (9); **kontra eduki** (8); **kontrolpean eduki** (13); **kontuan eduki** (38); **kontuan eduki behar** (17); **kontuan eduki beharko** (6); **lotuta eduki** (13); **luzaz eduki** (6); **luzez eduki** (6); **nola eduki** (10); **nork eduki** (8); **ona eduki** (25); **onak eduki** (6); **ondoan eduki** (9); **orduan eduki** (7); **orduz eduki** (8); **osoan eduki** (6); **preso eduki** (17); **prest eduki** (13); **prest eduki nahi** (6); **txarra eduki** (6); **ugari eduki** (6); **urte eduki** (10); **urtez eduki** (6); **zabalik eduki** (8); **zain eduki** (9); **zer eduki** (9); **zergatik eduki** (6); **zuen eduki** (13)

aparte edukiko (8); **aukera edukiko** (15); **aukera edukiko dute** (6); **aurrean edukiko** (6); **bat edukiko** (31); **bat edukiko balu** (6); **bat edukiko du** (8); **beti edukiko** (10); **edukiko balu** (15); **edukiko balu bezala** (6); **edukiko ditu** (28); **edukiko dituzte** (19); **edukiko dituzue** (9); **edukiko du** (88); **edukiko duela** (7); **edukiko duen** (13); **edukiko dugu** (19); **edukiko duk** (9); **edukiko dut** (17); **edukiko dute** (46); **edukiko dutela** (7); **edukiko duzu** (16); **edukiko duzue** (7); **edukiko ez** (24); **edukiko lituzke** (7); **edukiko luke** (21); **edukiko lukete** (6); **edukiko nuela** (6); **edukiko nuen** (13); **edukiko ote** (10); **edukiko zituela** (8); **edukiko zituen** (10); **edukiko zuela** (11); **edukiko zuen** (36); **edukiko zuten** (15); **ere edukiko** (12); **gehiago edukiko** (15); **gogoan edukiko** (7); **hori edukiko** (8); **itxita edukiko** (6); **kutsatutzat edukiko** (10); **kutsatutzat edukiko dituzue** (6); **zain edukiko** (13)

edukita ere (42)

aukera edukitzea (9); **bat edukitzea** (85); **dirua edukitzea** (7); **edukitzea baino** (18); **edukitzea bezala** (7); **edukitzea da** (40); **edukitzea dela** (6); **edukitzea edo** (9); **edukitzea erabaki** (12); **edukitzea ere** (18); **edukitzea eskatzen** (7); **edukitzea eta** (39); **edukitzea ez** (20); **edukitzea ez da** (7); **edukitzea ezinbestekoa** (6); **edukitzea gustatuko** (7); **edukitzea gustatzen** (9); **edukitzea komeni** (9); **edukitzea nahi** (7); **edukitzea zen** (8); **edukitzeagatik eta** (6); **edukitzeaz gain** (14); **ez edukitzea** (87); **ez edukitzeagatik** (9); **gehiago edukitzea** (9); **gogoan edukitzea** (7); **hori edukitzea** (6); **itxita edukitzea** (8); **kontrolpean edukitzea** (12); **ona edukitzea** (9); **onak edukitzea** (6); **prest edukitzea** (7)

bat edukitzeko (42); **bat edukitzen** (14); **batean edukitzen** (7); **beti edukitzen** (13); **edukitzeko agindu** (6); **edukitzeko aukera** (14); **edukitzeko baimena** (9); **edukitzeko beste** (6); **edukitzeko eskatu** (6); **edukitzeko eskubidea** (14); **edukitzeko eta** (13); **edukitzeko gogoa** (6); **edukitzen ditu** (9); **edukitzen dituzte** (9); **edukitzen du** (15); **edukitzen dute** (9); **edukitzen eta** (7); **edukitzen ez** (6); **edukitzen saiatu** (8); **edukitzen zituen** (20); **edukitzen zituzten** (6); **edukitzen zuen** (30); **edukitzen zuten** (10); **ez edukitzeko** (17); **gogoan edukitzeko** (8); **itxita edukitzeko** (13); **mendean edukitzeko** (7); **prest edukitzeko** (10); **zabalik edukitzen** (10)

edukiz eta (9); **edukiz gero** (71); **kontuan edukiz** (11)

---

eduki[2] *(orobat **edukin** g.er.)* *iz* zerbaitek barnean daukana, eskuarki testu baten gaia edo mamia.

Urdail-paretako muskuluaren uzkurtze-mugimenduek, **edukia** irabiatu, eta zuku urtsu bat bihurturik uzten dute. Irene Aldasoro

Ziur nengoen ehortzi baino lehen zerraldoa irekiaraziko zuela **edukia** ikusteko. Ramon Saizarbitoria

Kutxen **edukia** aztertu eta gure etxeko zoko-moko guztiez jabetzen joan nintzen. Alberto Ladron Arana

Tragoan hustu zuen **edukia**. Unai Iturriaga

Hiru litroko V10 motorrei bi zilindro kenduz gero, zortzi zilindrodun eta 2,4 litroko **edukia** duten motorrak lortzen dira. Berria - Kirola

Edukia ez ezik, bertso-saioen dinamika ere aldatu egiten da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Dakigunez, pentsamendu eskolastikoa kristau-fedearen **edukiak** razionalizatzen eta jakintzaren arloan toki duin bat aurkitzen saiatu zen. Askoren artean

Egilearen nahia eta, hortaz, testuaren **edukia** urratuta geratzen da. Iñaki Arranz

Proposamenaren **edukiei** buruz eztabaidatzeko ordua da. Berria - Euskal Herria

Bi hautagai nagusien kanpainaren **edukiei** dagokienez. Berria - Mundua

Webguneen **edukiak** biziki haserretu ditu Kanputxeako agintariak. Berria - Gaiak

Edukiaren aldetik, aberatsa da oso; ideia eta problematika ezberdinak garatzen dira pelikulan zehar. Berria - Kultura

Legea nahiko aurrerakoia da eta **eduki** aldetik ona. Berria - Ekonomia

Zure literaturan zer da lehenago, forma edo **edukia**? Ana Urkiza

Lopez Aguilarrek esan zuen legebiltzarreko alderdi guztiak arauaren aurka zirela, «lege hori tramitatzeko, forma eta **eduki** aldetik akats ugari egin zirelako». Berria - Euskal Herria

Alde batetik filmetako **edukia** (alderdi sinbolikoak eta mitikoak batez ere), eta bestetik film horien forma aztertu zuten. Josu Zabaleta

Zientzian, aldiz, ia **edukiak** soilik ematen dio lanari bere balioa. Juan Garzia

Liburua **eduki** aldetik eskasa izateaz gain (atal batzuen salbuespenak salbuespen) ez du Euskal Herriko artea aztertzen EAEkoa baizik. Berria - Kultura

Guztiei eskubide hori emanez gero, ikastetxeen kudeaketa ordutegi aldetik eta **eduki** aldetik ezinezkoa izango da. Berria - Harian

Berbaldi bakoitzak, **edukiak eduki**, beti izango du doinu bat, errima bat eta neurri bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Akordioaren **edukietatik** gertu ikusten du EB Kontseiluak eta epe laburrean sina dezakeela uste du. Berria - Harian

Gutunak -bai **edukiari** eta estiloari, bai hartzaileei dagokienez aski ezberdinak- bide ezin hobea ditugu Frantzisko [...] ezagutzeko. Askoren artean

Edukien alorrean, esaterako, sorkuntzari eta ekoizpenari arreta eskaini behar zaiela uste dute. Berria - Kultura

Grosrouvreren azken oharraren **edukia** zebilkion buruan. Jon Muñoz

Edukia eta edukitzailea nahasten ari zarela esango nuke. Jon Muñoz

Grina horren benetako **edukia** indartsuagoa zuan gu baino, gure asmoak baino, eta grina hor egon duk bizirik eta osorik. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

«CCOO eta UGT hiru urteko hitzarmena onartzeko prest» daudela jakinarazi zuen UGTko Jose Luis Martinek, «akordioak **eduki** garrantzitsuak baditu». Berria - Ekonomia

Eduki eskaseko hitzarmena da eta horregatik ez dugu sinatu. Berria - Ekonomia

Berrikuntzen **eduki** «desorekatua» ikusirik, ordu bat igaro ostean bilera bertan behera utzi zuten. Berria - Ekonomia

LAB eta ELAko kideok elkarrekin joatea, berez, urrats handia izan zen, baina askoz inportanteagoa izan zen **eduki** politikoetan ozenki adierazten hasi zena. Berria - Ekonomia

Gizarte digitalizatuan **eduki** intelektualak edo ezagutzak ez du erraz errepika ezin daitekeen edukiontzi fisiko bat. Berria - Gaiak

Ikusmenezko **eduki** benetakorik bereganatzen ez zuenez, ezer ezin zuen gogoan hartu ikusteari edo ez ikusteari buruz, edo mundu ikusgarriaren galerari buruz. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garrantzi handia du paragrafoa **eduki**-unitate gisa hartzeak. Askoren artean

Zeinu plastikoek, beste edozein zeinuk bezala, beren adierazpen-planoa eta beren **eduki**-planoa izan behar dute, eta denotaziozko eta konnotaziozko adieraziak bideratu behar dituzte. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gainerako guztia berdina dela, mineral-**edukiaren** araberakoa da hezurraren sendotasuna. Irene Aldasoro

Nik, eguna joan eguna etorri, bakoitzaren fosforo-**edukia** aztertzen eta finkatzen nuen. Juan Garzia

Orduan, egoera bakoitzari dagokion "ziurtasun eza" neur dezakegu eta hizkuntzaren "informazio-**edukia**" zehaztu. Itziar Laka

Bere ardatzaren gainean biratuz, edota dardara nabarmenaz, diegesi-**edukiak** inondik ere justifikatzen ez duelarik, baina era nabarmen horretan zinemagileak diegesi-**edukiari** atxiki nahi izan dion emozio bat "adierazten" delarik. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agiriaren edukia (3); **akordioaren edukia** (4); **baina edukia** (3); **baten edukia** (10); **benetako edukia** (3); **bere edukia** (11); **deklarazioaren edukia** (3); **dekretuaren edukia** (4); **dekretuaren edukia legez** (3); **ebazpenaren edukia** (3); **edo edukia** (3); **eduki aldetik** (7); **edukia aldatu** (3); **edukia aztertu** (9); **edukia aztertzen** (3); **edukia baino** (6); **edukia bera** (3); **edukia beste** (3); **edukia da** (3); **edukia ere** (5); **edukia espainiako** (4); **edukia eta** (19); **edukia ez** (17); **edukia ez da** (7); **edukia ezagutzen** (3); **edukia legez** (3); **edukia onartu** (3); **edukia oso** (4); **edukia zehazteko** (3); **edukia zuten** (3); **esaldiaren edukia** (3); **eta edukia** (21); **eta haren edukia** (3); **ez edukia** (3); **fedearen edukia** (3); **forma eta edukia** (3); **gutunaren edukia** (3); **haren edukia** (11); **honen edukia** (8); **horien edukia** (4); **horren edukia** (16); **itunaren edukia** (4); **konstituzioaren edukia** (4); **legearen edukia** (7); **obraren edukia** (3); **planaren edukia** (3); **proposamenaren edukia** (6); **testuaren edukia** (7); **txostenaren edukia** (7)

akordioaren edukiak (6); **bai edukiari** (3); **baina edukiak** (3); **bere edukiak** (4); **bere edukiaren** (6); **bere edukiaren arabera** (4); **beren edukiak** (3); **bileraren edukiak** (3); **diren edukiak** (9); **dituen edukiak** (6); **edukiak azaldu** (4); **edukiak baino** (5); **edukiak baino gehiago** (3); **edukiak ere** (4); **edukiak eta** (21); **edukiak ez** (7); **edukiak zehaztu** (3); **edukiarekin bat** (4); **edukiarekin bat eginez** (3); **edukiaren aldetik** (3); **edukiaren arabera** (17); **edukiaren artean** (3); **edukiaren berri** (6); **edukiaren erdia** (3); **edukiari begira** (7); **edukiari buruz** (4); **edukiari buruzko** (8); **edukiari dagokionez** (17); **edukiari eta** (4); **edukiaz eta** (3); **elkarrizketaren edukiak** (3); **estatutu proposamenaren edukiak** (3); **eta edukiak** (31); **eta edukian** (6); **eta edukiaren** (6); **eta edukiaren artean** (3); **eta edukiari** (7); **eta edukiari dagokionez** (4); **haren edukiaz** (4); **itunaren edukiak** (3); **legearen edukiak** (4); **proposamenaren edukiak** (9)

akordioaren edukiekin (4); **batere edukirik** (5); **batere edukirik gabeak** (3); **edukiei buruz** (8); **edukiei buruzko** (5); **edukiei dagokienez** (10); **edukiei eta** (6); **edukiei eta kudeaketari** (3); **edukiekin bat** (6); **edukiekin bat egiten** (3); **edukiekin ez** (3); **edukien arabera** (4); **edukien berri** (3); **edukien inguruan** (4); **edukietan ere** (3); **edukietan ez** (6); **edukirik ere** (7); **edukirik ez** (6); **edukirik gabea** (4); **edukirik gabeko** (16); **eta edukien** (4); **eta edukietan** (4); **eta edukirik** (6); **proposamenaren edukiei** (3); **prozesuaren edukiei** (3)

---

edukiarazi, edukiaraz, edukiarazten du *ad* edukitzera behartu.

Tristeago zegoen, ez hain pozik behintzat, akuilatu egiten baitzuten; hizketan eta diskoak entzuten **edukiarazten** zuten, limerickak sortzen, txantxetan eta kantari: atera egiten zuten; bestela, eroria egoten zen "hil-egoera" hartatik. Xabier Olarra

Sei egunez bere arnasaz **edukiarazi** zuen bizirik umea. Xabier Olarra

Dibortzioak gure arteko korapiloa askatu zuen legearen aurrean, horrenbeste urtean elkarrekin **edukiarazi** gintuen ezkontza deseginez, Hotzak **edukiarazten** zidan, halere, tente samarrik, saltxitxoi izoztu bat bezala. Oskar Arana

Beste batzuetan ogi eta ur hutsez **edukiarazten** zituen. Josu Zabaleta

Burua urpean **edukiarazten** zidaten (irudizko adieran, jakina) aldarteak nituen. Josu Zabaleta

Eta bere ondoan **edukiarazi** ninduen hiru egunez eta hiru gauez. Fernando Rey

Ez dut nahi neska kartzelan **edukiaraztea** zigortze aldera. Fernando Rey

Raynald Denoueixen kezka baloia berreskuratzea eta aurkaria bere zelaian **edukiaraztea** da. Berria - Kirola

---

edukiarren *adlag* edukitzeko.

Euskal pentsalaririk hobeskonetzat joak **edukiarren**, zeinen urruti gelditzen diren alegia, gizaseme apaiztu erretoriko hutsak, harako arima haragitan odoldu duen librepentsadore haren gogo lasa eta estzeptiko hartatik, ez nuen besterik esan nahi. Patziku Perurena

---

edukidun *izond* edukia duena.

Perpaus bat ulertzeko, nahitaezkoa da (nahikoa ez den arren, noski) maila bakoitzean duen itxurapena berregitea, maila formaldatzailea barnean dela; bertan, perpausaren azpian dauden muin-perpausak, perpausa eraikitzeko erabili diren "ekai **edukidunak"** direla pentsa daiteke. Itziar Laka

---

edukiera **1** *iz* zerbaitek edukitzen duen bolumena.

Ez zen jabetzen altura desberdineko baina bolumen berdineko ontziek **edukiera** berdina zutela. Xabier Olarra

Biltegi haien **edukiera** milioika metro kubokoa zen. Karlos Zabala

Edukierari dagokionez, 400 hektometro kubo ur garraiatuko ditu ubideak. Berria - Euskal Herria

Zein da upelaren **edukiera**? Jon Muñoz

Ez egin bidegabekeriarik, luzera, pisua nahiz **edukiera** neurtzeko neurri faltsuak erabiliz. Elizen arteko biblia

Demagun ontzi baten **edukiera** zortziehun tona ur dela: ontzi horren karga laurehun tonakoa litzateke. Iñaki Iñurrieta

Maila nagusiko motoak gehienez 800 cc-etakoak izango dira, eta gidari guztiek ere zilindroen **edukiera** horretara lehen aldiz egokitu beharko dute. Berria - Kirola

Hori dela eta, itsasontzien **edukiera** gari-modiotan neurtzen zen antzina, eta gaur egun likore-tonatan neurtzen da. Iñaki Iñurrieta

Urtegiaren zabalera eta **edukiera** handitzeko proiektua. Berria - Euskal Herria

Azken harmaila horrekin bi mila eserleku gehiago ditugu, baina instalazio osoko zirkunferentziak emango lukeen **edukiera** murrizten digu. Berria - Harian

Miarritzeko zuzendaritzak Aguileran jokatzea erabaki du, soilik 7.500 ikusleren **edukiera** badu ere. Berria - Kirola

Atzipen-denbora luzeagokoa jarriko du -milisegundoak edo are segundoak behar dituena- **edukiera** handiko memoria. Irene Aldasoro

2 (hitz elkartuetan)

Aleentzako **edukiera**-neurria. Xabier Kintana

Anega: ale **edukiera** neurria, hamabi lakariren baliokidea. Patxi Ezkiaga

Homo Floresiensis-ek 380 zentimetro kubikoko garezur-**edukiera** enfaloaren bolumenari dagokiona du. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **edukiera du** (3); **kubikoko edukiera** (3); **zilindroen edukiera** (3)

---

edukiezin *izond* ezin edukizkoa.

Gorena, onena, ahaltsuena, guztiahaltsuena, urrikaltsuena eta zuzenena, ezkutukoena eta agerikoena, ederrena eta bizkorrena, egonkorra eta **edukiezina**, aldaezina eta oro aldatzen duzuna. Imanol Unzurrunzaga

Egia esan, ba ote da Jainkoarentzat adinako tenplua eraiki dezakeenik, zeruek beraiek, hain handiak izanik ere, **edukiezin** dutelarik? Elizen arteko biblia

---

edukin ik **eduki**[2].

---

edukinontzi ik **edukiontzi**.

---

edukiontzi *(orobat **edukinontzi** g. er.)* **1** *iz* ontzi handia eta sendoa, neurri arautuak dituena, bilketarako eta garraiorako erabiltzen dena. ik **kontainer**.

Moilan, hozkailu biltegi berriak, zubi-garabiak, arku-garabiak, ro-ro arrapal haiek, gordailutegi frankoak eta, bukaerako estazioak edozertarako prest, sueltoko likido zein solido, **edukiontziak**... Urtzi Urrutikoeetxea

Transtainer-garabiek atseden barik dihardute beharrean, 20 eta 30 tonako **edukiontzien** garraioan. Urtzi Urrutikoeetxea

Ostera ere marka guztiak hautsi ditu Bilboko Portuak: 33,2 milioi tona merkantzia eta 500.000tik gora **edukiontzi** kudeatu zituen iaz %2,25 eta %6 gehiago, hurrenez hurren. Berria - Ekonomia

Txinaren pizkundeak %21 igoarazi du **edukiontzien** garraioa. Berria - Ekonomia

Garabi bat erabili zuten, Ramala hiritik gertu hutsik zeuden kokaguneetatik **edukiontziak** garraiatzeko. Berria - Mundua

Edukiontziak ondo zigilatuta dauden begiratu du Pedrok, eta portutik irteteko paperak prestatu ditu. Urtzi Urrutikoeetxea

Rheintal-ek **edukiontziak** Tiburyra. Urtzi Urrutikoeetxea

Zakukada batzuk hondakin etxetik atera eta iturri ondoko **edukiontzira** eraman eta gero. Jon Alonso

Bonba lehergailu plastikoz zegoen osatuta eta azoka ondoko **edukiontzien** artean ezkutatu zuten, tren geltoki batetik gertu. Berria - Mundua

Kissufimerako bidean **edukiontziak** daramatzaten kamioiak baino ez dira ikusten errepidean. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaur egun mankomunitatean birziklatzeko 2.636 **edukiontzi** daude: papera eta kartoiarentzat 412 biztanleko **edukiontzi** urdin bana dago; beirarentzat 399 biztanleko **edukiontzi** berde bana eta ontzi arinentzat 411 biztanleko **edukiontzi** hori bana. Berria - Euskal Herria

Orain 50 urte erabili zituzten lehengo aldiz kontainerrak merkantzien garraiorako; **edukiontzi** erraldoiek nabarmen merkatu dute garraioa ordutik, eta bizkortu. Berria - Gaiak

Urrunean, gandu urdinxkaren artetik, birfindegiko **edukiontzi** handiak igartzen ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Ontzi-agintari nagoenez geroztik, aitu?, inoiz ez zait falta izan kutxa bakar bat ere, **edukiontzi** bakar bat ere portura iritsitakoan. Jon Muñoz

Zentralera **edukiontzi** erradioaktiboak zeramatzan kamioi batek istripua izan zuen, eta **edukiontziak** erori egin ziren. Berria - Harian

Bere onera bueltatu zenean zaborretarako **edukiontzi** baten barruan zegoen. Berria - Euskal Herria

Birziklatzeko **edukiontzi** batzuek su hartu ostean, inguruan aparkatuta zeuden sei ibilgailuk kalteak izan zituzten atzo Ondarroan. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Korrikalariak, Santurtziko zentral termikoa ezkerrean eta portuko garabiak, merkantzia **edukiontziak**, kostaldeko amildegiak, itsaso zabala eta belaontziak eskuinean. Berria - Harian

Gaur egun erabiltzen diren zakar-**edukiontziak** nekez irekitzen dira, nekez lurrera botatzen. Jon Alonso

Itsumustuan, zakur bat irten da ziztu bizian espaloiko zabor **edukiontzien** artetik, eta bidean sartu. Josetxo Azkona

Sarrailatan silikona edo zotzak sartzea, zabor **edukiontziei** edo gurpilei su ematea, pinu bat errepidean gurutzatzea, gurpilak zulatzea. Berria - Harian

Poliziako agenteek eta suhiltzaileeek sua hartu zuen birziklapen **edukiontzi** bat itzali behar izan zuten. Berria - Euskal Herria

Paper **edukiontzi** baten barruan 27 urteko gizonezko bat hilik aurkitu dute Bilboko Zorrozaurre auzoan. Berria - Euskal Herria

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

P. zauritu zen zaztar **edukiontzi** tapa bat gainera erortzean. Berria - Ekonomia

5 zerbait edukitzeko zernahi ontzi.

Ez al du **edukiontziak** edukiak baino garrantzi gehiago hartu? Berria - Kultura

Minustaheko eledun David Wimhurstek azaldu zuen hauteslekuetan, boto egiteak amaitu eta gero aztertutako boto txartelak bildu besterik ez zituela egin NBEko indarrak eta boto txartel hauek **edukiontzi** berezi batzuetan emanak izan zirela. Berria - Mundua

Istripuaren eraginez eguzki partikulak gordetzeko diseinatutako **edukiontzia** apurtu egin da eta materiala inolako babesik gabe geratu da. Berria - Gaiak

Lipar batean, horra aparatua desmuntaturik, termostatoa 800°C-ra graduaturik, **edukiontziaren** presio-gutxitzailea erregulaturik, fluximetroa bere lekuan kokaturik. Juan Garzia

Begiratua egin diot egongelari, atzoko afariko erretiluari, iraulitako garagardo latei, jatetxe txinatarreko plastikozko **edukiontziei**. Iban Zaldua

Ezagutu zuenetik Juliak bilduma polita zeukan, bere logelan pilatuak, adreiluzko **edukiontzietan** txukun sailkatuta. Jasone Osoro

6 irud/hed

Ez nuen gehiago oinaze handi baten **edukiontzia** izan nahi, baizik eta nire jaiotzaren aurreko historia ezagutu, sortua nintzen giroa ulertu. Joxan Elosegi

Idazten ari den folio bakoitza argi **edukiontzi** bat litzateke orduan, argiaren uzta biltzen ariko da komediantea, garia biltzen duenak bezala. Harkaitz Cano

On litzateke EITBk **edukiontzi** erako kultur programazioak zabaltzea, edota espezifikoak bestelako ordutegi egokiagoetan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
biztanleko edukiontzi (3); **edukiontzi bat** (8); **edukiontzi batean** (7); **edukiontzi batzuk** (3); **edukiontziri su** (3); **zaborren edukiontzien** (4)

---

edukitasun *iz* adierazpenetan eutsia izateko nolakotasuna.

Hots, Victor Hugo urbanoa natura eta naturaltasuna goratzeko dago, baina beti bere urbanitatearen **edukitasunetik**. Koldo Izagirre

---

edukitsu *izond* asko daukana.

Paradoxa litzateke **edukitsuak**, beren ondasunen jabetzaz gainera, ezedukien esker ona erreibindikatzen ikustea. urteak igaro arren, funtsean gaiak ez ziren aldatzen; polemika berrien berotan aberastu eta fede katolikoaren ezagutzaz eta sakontzeaz **edukitsuago** egiten ziren. urteak igaro arren, funtsean gaiak ez ziren aldatzen; polemika berrien berotan aberastu eta fede katolikoaren ezagutzaz eta sakontzeaz **edukitsuago** egiten ziren. Josu Zabaleta

---

edukitza *iz* gauza bat edukitzea.

Kristau-aroko hemeretzigarren mendeak Ipar Amerikako belardietako indiarra europar arrotzen armetako bat jatorrizko jabearen aurka bihurtzen ikusi zuen, inportaturiko zaldiaren laguntzaz Lautaden **edukitza** eztabaidatzen ziolarik. Iñaki Mendiguren

-Zorioneko gaudek sorgorkarien **edukitza** gehitu ez diotelarik kargu horri -kontesta Kixok azkenik. Aingeru Epaltza

Edukitza izan ohi da lehena eta luzaroan ere bakarra, gizakien egoera zibila frogatzeko. Andres Urrutia

---

edukitzaile *iz* edukitzen duena.

Izaerari soila deitzen diogu galgarririk deus ez daukalako, hau da, **edukitzailea** eta edukia bi gauza ezberdin eta banagarri direlako, hala nola, edalontzia eta edaria, gorputza eta kolorea, airea eta argia edo berotasuna, arima eta jakinduria. Imanol Unzurrunzaga

Espazioari dagokionez, berau ez da nonbait edukia, **edukitzailea** baizik. Xabier Kintana

Substantzia bakun batek biziaren akzidentea ez badauka, orduan nahitaez heriotzaren akzidentea eduki beharko du, elkarren aurkako azkzidente biren artean, **edukitzaileak** ezinbestean bat eduki behar duelako. Xabier Kintana

Gure ondasun ezkutatu batzuen **edukitzaileari** gure aldetik mezu bat igortzeko. Josu Zabaleta

---

edukitze **1** *iz* norbaitek zerbait -eskuarki besterendu daitekeen zerbait- halako atxikitasun batez edo denbora jakin batez izatea.

Lurra **edukitze** eta kontrol pribatuari loturiko jabetza delako teoria da gizarte modernoaren oinarria. Xabier Olarra

Dirua ez dago edukitzerik, ez dago geldirik edukitzerik, eta edukitzeari, korritu gabe **edukitze** hutsari, usteltzen edo lizuntzen egotea esaten diote. Iñaki Segurola

Tourrean, edo Munduko Kopako proba batean korritu eta garaipena lortzeko aukera **edukitze** hutsa ikaragarria da niretzat. Berria - Kirola

Aita, hauxe nahi nuke: azken ordu honetan sor eta eman diezadazula herri berri eta xume bat, apaltasunean eta pobretasunean oraindainoko beste guztiak ez bezalakoa, eta ni **edukitze** hutsaz pozik egongo dena. Jokin Urain

Nekazaritzatik bizi direnen kopuruak gora egiten duenean, gastu gutxiago sortzen dituen labore bat eskuragarri **edukitze** lagungarria izango da. Berria - Gaiak

Galiziako lagun batek esaten dit gailego bihurtzen ari naizela, hildakoekin harremana **edukitze** hori, ametsen bitartez izanda ere, haiena dela oso. Pako Aristi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eramangarri [...]: **edukitze** gorabeherak direla-eta, jabetza aldaketaren arriskuan dagoena. Xabier Olarra

Norberaren **edukitze** irrika asetzen eta beste gainerakoena zapuzten duen edozer. Xabier Olarra

Edukitze mota bat, erlijioso-anaidiek lurrak eskuratzeko erabiltzen dutena, dohaintza eman dien arimaren alde otoitz egiteko baldintzapean. Xabier Olarra

---

edukitzearren *adlag* edukitzeko.

Autoan sarrarazi duzu, kopilotuaren atetik, pistola uneoro berari begira **edukitzearren**, eta bere atzean sartu zara zu ere. Sonia Gonzalez

Etxea **edukitzearren** zorrez leporaino egoteak bizitza osoko aurrezki guztiak erretzea dakar. Berria - Euskal Herria

Gorputzari eman behar genizkion onenak, gogoa erne **edukitzearren**. amek besoetan hartzen zituzten haurrak eskuak okupatuta **edukitzearren**. Koldo Izagirre

-Zer ez nuke emango zuen bihotzen izpi bat, izpi bat besterik ez, nirearen ordez **edukitzearren**! Juan Kruz Igerabide

Tomek bazuen bere beka [...] eta bazeukan egun erdiko lan bat ere unibertsitateko liburutegian, hile amaierara iristeko beste diru **edukitzearren**. Oskar Arana

Oroigarria apetazkoa zuela aitortu zuen Mentxuk, benetan gogoangarriak izan ziren egun haien aztarrena **edukitzearren**. Josu Landa

Ez **edukitzearren**, ez zuen geure buruak botatzeko moduko etxeorratz jaso edo horretarako propio egindako zubi garairik ere. Joxean Agirre

edukitzeke *adlag* eduki gabe.

Egile eta itzultzaile saiatu batzuk sancta santorum, olinpotxo eta parnasotxo guztietatik at dauden artean, hainbat argitalpen ikusezin direla, literatur kritika hutsezko aldizkari espezializatu barik **edukitzeke**, alegia, egile, itzultzaile eta argitaratzaile guztiak berdintasun egoeran ez dauden arteraino, kritika negatiboez berba egitea baikorregi izatea da. Berria - Kultura

---

edukizko *izlag* edukiei dagokiena.

LABeko idazkari nagusiak beharrezkotzat jotzen du administrazio, sindikatu eta patronalen arteko elkarrizketa jorratuko duen esparru «egonkor, autonomo eta **edukizkoa**» lantzea. Berria - Ekonomia

Honela, "ulertze" prozesua aztertzearen inguruko arazo orokorra murriztu egiten da, zentzu batean, muin-perpausak nola ulertu behar diren azaltzeko arazora, hauexek baitira oinarrizko **"edukizko** elementuak", eta hauetatik eratortzen baitira benetako, eguneroko perpaus arrunt, konplexuagoak, garapen formaldatzailearen bitartez. Estimazioen arabera, faktore- **edukizkoa** den efektu bakar horrek 3-9 milioi bitartean murriztu ahal izan du herrialde garatuetako langile kualifikazio gabeen eskaria. Itziar Laka

---

edulkoratu, edulkora, edulkoratzen **1** du *ad* produktu kimikoez gozotasuna eman.

Goxatu nahi genuke hitza, haren basakeria eztituz, **edulkoratuz**, honela ebakiz. Joxan Elosegi

Literaturan zaila da poza adieraztea samurkeriarik gabe, xalo **edulkoratua** izan gabe. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Hori guztia albistegi batean, doluminaren bertsiorik **edulkoratuena**, holliwoodienseena, AEBetako armadak inoiz Afrikan egin duen misio humanitariorik eztabaidatuena samurtzeko. Txema Ramirez de la Piscina

Ez dudala gauza **edulkoratu** bat egin errekonozitu zait. Ana Urkiza

Azken aldi honetan gure inguruko fikziogintzan eta are gurean ere eskaini izan zaizkigun zahartzaroari buruzko ikuspegi **edulkoratuetatik** nahikoa urrun dago Askildsenena. Berria - Kultura

---

edur ik **elur**.

---

edutezko *izlag (gramatikan)* edukizkoa.

Horiek guztiak deus egiteko ez dutenen tontakeriak dira edo hizkuntzaren idiosinkrasiei loturik geratu direnena, feminista amerikar inozo horiek bezala, *history*-ren ordez *herstory* erabiltzea nahi zutenak, hitzaren hasierako *his* hori eta genero maskulinoko **edutezko** izenordaina gauza bera balira bezala, giza ergelkeriak ez du mugarik. Karlos Zabala

---

eee ik **e**.

---

eez *interj adkor* ez.

- **Eez**, bena... Itxaro Borda

Eez; holakorik ez. Pablo Sastre

-E- **e-ez**, maitea -esan zuen, astiro-, ez naiz inozoa. Jose Morales

---

efedrina *iz* landare etorkia duen sendagaia, neke sentsazioa apaltzen eta erne egoten laguntzen duena.

Efedrina debekatuta dago nazioarteko txapelketetan. Berria - Kirola

Efedrina, anabolizanteak, esteroideak eta klenbuterola, dira, besteak beste, aurkitutako substantziak. Berria - Gaiak

Analisiak **efedrina** antzeman zuen, eta Maradonak gaizki bukatu zuen 1994ko bere Munduko Kopa. Berria - Kirola

---

efektibitate *iz* efektiboa denaren nolakotasuna.

Ez dakit aski den pertsonaia batekin identifikazioa lortzea, haren iritziekin bat etortzea liburu baten kalitatea edo **efektibitatea** epaitzeko. Berria - Kultura

---

efektibo **1** *iz* eraginkorra.

Garapen iraunkor terminoaren erabilera progresiboak ez duela balio izan gorago aipatu ditugun arazo larri biak konpontzera bideratutako politika **efektiboak** inplementatzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Esperimentazioaren bidetik mintzo berriak eta irudi freskoak arriskatuz, espazioa, mugimendua, irudia eta hitzaren arteko konbinazio **efektiboak** lortu dira. Herria

Benetako eskubide **efektiborik** ez dela bermatzen esan du, legean azaltzen diren edukiak «erabat orokorrak» direlako. Berria - Euskal Herria

Rufino Arrolaren metodoa **efektiboa** zan, antza, behingoan hasten baitzan ikasle txikiak beragaz hara-hona eroaten. Xabier Amuriza

Musika polita da eta une batzuetan **efektiboa** da; beste batzuetan, aldiz, monotono eta sinpleegia. Berria - Kultura

Umorea, fina eta **efektiboa**. Berria - Kultura

Estilo xarmagarria eta guztiz **efektiboa**. Xabier Amuriza

Enuntziatuen bakantasun **efektiboan** oinarriturik eraketa diskurtsiboen azterketak bakantasunari berari begiratzen dio bakarrik. Xabier Arregi

Susmoa gelditzen da, euskararen modernotu ezinaren arrazoi sendo bat, jendaurrean airatzeko itxuratzarragoa, baina **efektiboagoa** ausaz, haren txikitasun kuantitatiboa ez ote den. Joxe Azurmendi

Goio ez zen hain **efektiboa** izango baina ausarta bai, estirada itzelak egiten zituen airean luze jauziz patioko lurrean. Joseba Sarrionandia

Fernando Muniozgurenek, Eibarko euskara teknikari izandakoak, hizkuntza afektiboa **efektiboa** dela esan ohi du eta, ezbairik gabe, benetako egia dio. Koldo Zuazo

2 *pl* talde organizatu bat osatzen duten pertsonen multzoa.

Efektibo minimoekin ahalik eta sendotasun itxurarik handiena ematea. Harkaitz Cano

---

efektiboki *adlag* era eraginkorrean.

Hilabete gutxiren buruan, Agentziak menperatuko baitzuen, denen oharkabean, baina **efektiboki**, piku-mermeladaren mundu osoko merkatua. Jon Alonso

---

efektismo *iz* efektista denaren nolakotasuna.

Faztertu egin ditu ikuskariek erantsita ohi dituzten **efektismoak** -eta: «Hitzak, ahal badu, aurrera aterako du 75 minutuko saioa, eta bestela hitzaren porrota izango da». Berria - Kultura

Efektismorik gabe. Berria - Kultura

Instalazio kutsu nabaria duen muntaia honetan **efektismorik** gabeko, presarik gabeko, nabarmenkeriarik gabeko esperimentazioa eta bilaketa zintzoa izan dira gogoan gehien gordeko ditudan sentsazioak. Berria - Kultura

---

efektista *izond* zirrara eragitea edo arreta bereganatzea helburu duena.

Neurri erraldoi horrekin proiektu **efektista** izango den susmoa hartzen diot. Berria - Kultura

Gisa honetako filmetan pertsonaiak oso arketipikoak izan ohi dira, baina film honetako gidoian nortasuna eman nahi izan diegu, eta egonezina sortzen duen giro batean murgildu, topiko **efektistetatik** eta gore zinematik ihes eginez, hori ez baitzait batere interesatzen. Berria - Kultura

Rock eskema zaharkitua darabil Tiersenek, arrunt **efektista**, lineala. Berria - Kultura

Mutilak, **efektistago**, beso bat bestearen kontra estutzen zuen, azazkalak haragian sartu nahian bezala, sabaira begira; seguruenik martiri sentitzen zen une horretantxe. Xabier Mendiguren Elizegi

---

efekto ik **efektu**.

---

efektu *(ETCn **15.658** agerraldi; orobat **efekto** ETCn **28** agerraldi; eta **efetu** ETCn **70** agerraldi)* **1** *iz* kausa bat aritzearen ondorioa; eragina.

Efektuak ez, kausak borrokatu behar ei dira. Joxe Azurmendi

Aldaketa guztiak kausa eta **efektua** elkarlotzen dituen legearen arabera gertatzen dira. Ibon Uribarri

Kausen eta **efektuen** kateatzea da zientzia. Josu Zabaleta

Lehenagoko pasarte batean ikusi dugu nola Hildebrando amildegira eraman zuen itxuraz ezinbestekoa zen kausa eta **efektuen** kateaketak. Iñaki Mendiguren

"Kausalitateak", berriz, lege naturalen bat inplikatzen du eta, horren arabera, kausa eta **efektua** modu deterministan lotzen ditugu. Askoren artean

Ez dela kausarik ez zuen **efekturik** ikusi, eta kausak oro, dela predestinazioz edo dela ekintza mekaniko hutsez, **efektuak** sortu eta sortuko dituela, eta **efektu** hauek, hau garrantzizkoa da, berehala gertatzen direla, kausatik **efektura** iragate hori behatzailearen oharkabean burutu bada ere. Jon Alonso

Paisaiak herriaren arimaren **efektuak** dira, ez kausak. Joxe Azurmendi

Tranpa handienetako bat sortzen da gertaera baten aurrean zein faktore den kausa eta zein ondorioa edo **efektua** bereizten hasterakoan. Iñaki Heras

Merkealdiaren **efektua** igaro orduko %0,8 igo da inflazioa Hegoaldean. Berria - Ekonomia

Arreta berezia jarriz lekuaren hautaketan, ahotsaren **efektua** asko hobetuko da teatroetan. Santiago Iruretagoiena

Munduko prezioek nazio-ekonomien gainean eragiten dituzten **efektuak** enpirikoki aztertzen. Koro Navarro

Katiluko urak ispiluaren **efektua** egin zuelako. Martin Anso

Ez nuen uste sendagilearen injekzioek **efekturik** izango zutenik. Joseba Urteaga

Kokaina **efektua** egiten ari zen nerbio sisteman. Unai Iturriaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sekulako beldurra zion hitz okerrari, puzkarra botatzea bezain **efektu** txarrekoa iruditzen baitzitzaion. Joseba Urteaga

Efektu mekaniko sinple bat da hori. Irene Aldasoro

Dialogo asko eta **efektu** espezialik batere ez. Unai Iturriaga

Efektu askatzaile ikaragarria izaten zuten oihu haiek ikasleongan. Xabier Mendiguren Elizegi

Zinemak **efektu** estetiko bihurtu zuen hasieran zinematografiako apailuaren ezaugarri berezi bitxi samar bat baizik ez zena. Josu Zabaleta

Zehaztasun optiko-geometrikoa hurbilago al dago ideal horretatik **efektu** "atmosferiko" baten bilaketa baino? Josu Zabaleta

Zer da **efektu** fotoelektrikoa? Berria - Harian

Batzuetan tratamenduak, hainbat arazo direla medio, ez duela aurreikusiriko **efektua** sortzen, edota, lortu arren, txarrera ere egiten duela eriak tratamenduaren **efektu** sekundarioengatik. Iñaki Heras

Gastu publikoaren **efektu** biderkatzaileak ere bazuen beste **efektu** sekundario bat kalterako, *crodwing out* **efektua**. Iñaki Heras

Hori ere **efektu** zuzena besterik ez da, eta ez du kontuan hartzen enpleguaren gainean duen zeharkako **efektua**. Koro Navarro

Aurkako **efektua** ere demostratu da laborategian, hau da, tentsio mekanikoa sortzea korronte elektrikoa igarotzean. Irene Aldasoro

Bi irudien arteko desberdintasunak kontu handiz kalkulatuz, errealitatean gertatzen den sakontasun-efektuaren antzeko sakontasun estereoskopikozko **efektu** bat eragiten da. Josu Zabaleta

Bi parametro desberdin horien konbinazioak ikuslearen espaziozko zuinak nahasteko berariazko **efektu** bat eragiten zuen. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Blairren **efektu** kolpe ikusgarriena Alan Milburn hauteskundeetarako koordinatzaile postuan jartzea izan da. Berria - Mundua

Bat-batean, adagio xalo bat jarraitu zitzaion staccatoari, **efektu**-kolpe kontrastezko batez. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Rooney **efektua** bizi izan zuten txekiarrek. Berria - Kirola

Boomerang **efektua** lortzea da kontua. Txema Ramirez de la Piscina

Horietako bat «kolapsatu» egin zen, eta «domino **efektua**» gertatu zen. Berria - Ekonomia

Halako kontraste-**efektu** zakarra sumatzen zuen. Xabier Olarra

Planetaren berotze **efektua** saihesteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Berotegi-**efektuko** gasen emisioak murriztera edo ozono-geruzaren suntsitze prozesuari aurka egitera begira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Negutegi **efektuak**, berriz, parke natural horien balioa honda dezakeela ohartarazi dute. Berria - Gaiak

Duboisek, berriz, lehen planoak eragiten dituen irrika-**efektuak** azpimarratzen ditu batez ere, fokatze-**efektua**, zorabio-**efektua** ("arrakala egin eta amildegi bihurtzen den harri-kozkorra") eta Medusa-**efektua**, aldi berean liluratzen eta esti eragiten duena. Josu Zabaleta

Bi merkatu horiek, gainera, erlazionaturik daude erabat feedback edo berrelikatze **efektu** sakonen bidez. Iñaki Heras

Orainaldiko une bakoitza iraganerantz irristatzen baita, eta orainaldia etengabeko irristatze horretaz eta horrek eragiten dituen oroitzapen eta itxaropen-**efektuez** egina baita, orobat. Josu Zabaleta

Filmak eragiten dituen gainerako sineste-fenomenoak, fikzio-**efektuaren** bidez eragiten dituenak batez ere, alde batera uzten dituela. Josu Zabaleta

Ponzo-ren ilusioan, adibidez, goiko marra "urrutiago" balego bezala ikusten da, zehar-marren konbergentziak eragiten duen perspektiba-**efektuak** eraginik. Josu Zabaleta

Horri deitzen zaio mozorrotze-**efektua**. Josu Zabaleta

Filmaren pertzepzioa ezinezkoa izango litzateke, azken finean, fi-**efektuagatik** ez balitz, eta erretinako irudi-iraunkortasunaren morrontzatik askatzen gaituen ikusmenezko mozorrotzeari esker, orobat. Josu Zabaleta

Hemen ere irudiek ez dute inolako estereopsia-**efekturik**. Josu Zabaleta

Erantzun "bizkorra": oso bizkor aldatuz doazen estimuluekiko erantzun-**efektuen** multzoa da. Josu Zabaleta

Aurreraxeago azalduko dugu (ikus I.2) nola azalpen hori faltsua den erabat, eta oso bestelako mekanismoek eragina dela mugimendu-**efektua**. Josu Zabaleta

5 (elkarketa kopulatiboak)

Banekien, jakina, bi mundu horiek egoera beraren bi aurpegiak zirela, baina, praktikan, kausa-**efektuzko** loturarik gabeak ziren niretzat. Anjel Lertxundi

Bazegoen lotura bat, kausa-**efektuzkoa**, paseoetan behatutakoaren eta grabatze saioen emaitzen artean. Iñaki Iñurrieta

6 pilota edo bola bati ematen zaion higidura birakaria, ibilbide normaletik desbideratzen duena.

Valcarceri erdiratzen saiatu zen, eta baloia, **efektu** bitxia hartu ostean, Albertoren ate barrura joan zen. Berria - Kirola

Efektuarekin jaurtitzen du edo jaurtiketa luzeak, oso gutxitan motzak. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askoz efektu (3); **baina efektu** (7); **baten efektu** (3); **bere efektu** (4); **beren efektu** (3); **beste efektu** (4); **da efektu** (8); **da efektu hori** (3); **den efektu** (3); **duen efektu** (4); **edo efektu** (6); **efektu bat** (21); **efektu bat eragiten** (3); **efektu bera** (3); **efektu berbera** (3); **efektu berezi** (3); **efektu berezia** (3); **efektu bereziak** (14); **efektu berezien** (6); **efektu bikoitzaren doktrina** (5); **efektu eta** (4); **efektu ez** (3); **efektu fotoelektrikoaren** (4); **efektu gisa** (11); **efektu guztiak** (3); **efektu handia** (3); **efektu hauek** (3); **efektu hori** (20); **efektu horiek** (5); **efektu horren** (4); **efektu jakin** (4); **efektu kolpe** (5); **efektu kolpe bat** (3); **ere efektu** (4); **eta efektu** (22); **hainbat efektu** (4); **kausa efektu** (6); **oso efektu** (3); **sineste efektu** (3)

baten efektua (4); **bere efektua** (3); **berotegi efektua** (58); **berotegi efektua eragiten** (36); **berotegi efektua murrizteko** (3); **berotegi efektua sortzen** (5); **boomerang efektua** (3); **da berotegi efektua** (5); **den efektua** (4); **domino efektua** (5); **duen efektua** (6); **duten efektua** (5); **efektua areagotzen** (3); **efektua areagotzen du** (3); **efektua da** (9); **efektua da hori** (3); **efektua deitzen** (3); **efektua egin** (3); **efektua egiten** (5); **efektua eragin** (5); **efektua eragiten** (42); **efektua eragiten duten** (38); **efektua ere** (3); **efektua eta** (3); **efektua ez** (8); **efektua izango** (3); **efektua lortzeko** (4); **efektua lortzen** (3); **efektua murrizteko** (3); **efektua sortzen** (13); **efektua sortzen du** (3); **efektua sortzen duten** (4); **errealitate efektua** (3); **errealtasun efektua** (4); **eta efektua** (10); **kausa eta efektua** (8); **kontrako efektua** (8); **negutegi efektua** (11); **negutegi efektua eragiten** (3)

bere efektuak (4); **berotegi efektuaren** (7); **berotegi efektuko** (18); **berotegi efektuko gasen** (15); **diren efektuak** (3); **efektuak dira** (3); **efektuak sortzeko** (3); **efektuarekin duen** (4); **efektuaren arteko** (8); **efektuaren eraginez** (4); **efektuko gasen** (15); **efektuko gasen emisioa** (9); **eta efektuaren** (14); **eta efektuaren arteko** (6); **eta efektuen** (7); **kausa eta efektuaren** (6); **kausaren eta efektuaren** (7); **kausen eta efektuen** (3); **soinu efektuak** (4)

---

efemeride *iz* garrantzi bereziko gertakaria, urteurrenero ospatzen dena; astronomian, argizariei buruzko datuak biltzen dituen taula.

Atzoko egunarekin betetzen ziren bi **efemeride** ekarri zituen gogora Iturriak: batetik, duela 14 urte Egunkaria-k 0 alea kaleratu zuen, eta horrekin batera belodromoan egundoko jaia antolatu zen. Berria - Euskal Herria

Efemerideetan, Xabierko Frantziskoren urteurrena. Iñigo Aranbarri

XVIII-XIX: 200 urte hauetan **efemeride** bat seinalatzekoa: [...]. Pello Zabala

Berriak bere agenda ere badu, euskal historiako **efemerideekin**. Berria - Kultura

Geldialdi txiki bat egingo dut, eguneko gertaera bat eta **efemeride** bat aipatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaurtik aurrera, zientzia dibulgazioa euskaraz lantzen duen lehen atarian hiru atal berri egongo dira: Hileko zerua astronomiako **efemerideak**, Dibulgazio liburuak hilero liburu bat aholkatuko dute eta Gaiak atariak dituen eduki guztiak jasotzen dira hemen. Berria - Gaiak

Bihar **efemeride** esanguratsua da kosmologiarentzat: 115 urte beteko dira Edwin Hubble astronomoa jaio zela. Berria - Gaiak

---

efemero ik **efimero**.

---

efemeroptero *iz* libelulen taldeko intsektua.

Efemeropteroak intsektuen arteko ordena bat dira, berezitasun nahiko antzinakoak dituzten mozorro talde bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ibai eta aintzira ertzetako intsektuak dira **efemeropteroak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Efemeropteroak ez dira hegalari oso trebeak eta ahorik, ahoko aparatu murtxikatzailerik, ez dute, atrofiaturik dago. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eroaldi hori ederki aprobetxatzen dute arrain eta hegaztiek eta makina bat **efemeropterok** amaitzen du animalia goseti horien eztarrietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

eferbeszente *izond* burbuilak jariatzen dituena.

Aspirina **eferbeszenteen** kaxa hor zen, nire ekarpen bakarrenetariko bat etxe horretako zuzkidurei. Aingeru Epaltza

«Aspirinak bezain **eferbeszenteak** dira *Bala hutsak* liburuko poemak», Benitoren iritziz. Berria - Kultura

---

eferbeszentzia *iz* isurkari batek burbuilak jariatzea. • *irud/hed*

Jende askoren oroimena ziztatzeko gaitasuna duten gisa horretako izenak ardatz hartuta, 70eko hamarkadako Hego Euskal Herrian lehertu zen «disidentzien **eferbeszentzia**» nolakoa izan zen igartzen laguntzen duen erakusketa da Disidentziak oro, 1972-1982. Berria - Kultura

---

eferente *izond* anatomian, organo edo zentru batetik periferiarantz ateraten dena.

-Ez, albaitariak hodi **eferentea** moztu baizik ez du egiten. Josu Zabaleta

Informazio **eferentea** garunetik sentimen- eta mugimen-organoetara doan nerbio bidezko informazioari esaten zaio. Josu Zabaleta

Informazioa emateko eginkizun hori begietako giharren *feedback*-ari ez baina garunetik ateratako seinale **eferenteari** behar zaio esleitu. teoria hauen arabera, konbinazio horietan, algoritmo horietan, erretinako informazioaren analisitik atera daitezkeen berezko aldagaiez gainera, bestelako gertaera batzuei dagozkien kanpotiko aldagaiak ere sartzen dira (begien mugimenduak bideratzen dituzten seinale **eferenteak**, memoria, eta abar). Josu Zabaleta

1960 ondoko urteetan, zibernetika boladan zegoen urteetan, bestelako eredu batzuk proposatu ziren ikusmenezko munduaren egonkortasuna azaltzeko; eredu horiek seinale **eferentearen** eta seinale erreaferentearen arteko alderaketa oinarritzen ziren, eta garunean egiten den konparaketa hori ematen zuten ikusmenezko egonkortasunaren eragiletzat. Josu Zabaleta

---

efesoar *(ETCn **18** agerraldi; orobat **efesotar** ETCn **4** agerraldi) izond/iz* Efesokoa, Efesori dagokiona; Efesoko biztanlea.

Efesoarrok, ba ote da inor ez dakienik, Efeso hiria Artemisa jainkosa handiaren tenpluaren zaintzailea eta zerutik eroritako beraren irudiaren zaintzailea dela? Elizen arteko biblia

Efesotarrek tunika amorginoak eramaten zituzten, gardenak. Juan Garzia

---

efesotar ik **efesoar**.

---

efetu ik **efektu**.

---

efigie *iz* pertsona baten irudi edo imajina.

ohiko usainaz gain bazen han beste honako hauen usaina ere: abadeena, **efigieena**, atzeena, idi-jotakoena, elemenia opakuarena, errestoena, [...]. Xabier Olarra

Badira, beraz, formen **efigie** xumeak eta euren antzekoak, banan inork ikustekoak izan ez arren, ispiluaren lautik islada etengabean birjaurtiak izanik, ikusmena eragiten dutenak. Xabier Amuriza

---

efikaz *izond* eraginkorra, nahi edo espero den ondorioa lortzen duena.

Metodoa **efikaza** zala dirudi, ze Roberto haregaz urri batean hasi eta hurrengo apirilean plazetan joten ebilen, haren inguruan. Xabier Amuriza

Merkatu askea tresna **efikaza** da, baliabideak esleitzeko limitazioak dituen arren. Iñaki Heras

Oroit gira nola duela bi urte, BAM-en CSA etxeak egin aburu ikerketan agertu zela, burraso gazteen ehuneko 56-ak nahi zuela bere haurrek euskara molde **efikazean** ikas zezaten eskoletan. Herria

Gaitzen kontrako sendabidean abiatzeko **efikazena**, informazioa. Edorta Agirre

Boterearen tresna **efikazenetako** bat gizartea manipulatzeko eta kontrolatzeko, ezagunki, eskola edo hezkuntza da. Joxe Azurmendi

Ez dut uste Amaiaren kurtsiloak hain **efikazak** izanen diren. Patziku Perurena

Ez nuke hori baino edukazio moral ederragorik eta **efikazagorik** nahiko, herri baten arima argitzeko, lasatzeko, sendotzeko... Patziku Perurena

"Gazte ero horiek" ikasi zuten, eta sinetsi demokrazia, eliza ala ebanjelioak erran, Historian indarra dela arrazoia, nahiz kontrastez Karlos Santamariak ahaleginak egiten zituen, etsipen ilun horri buru eginez, bere ikasleei erakusteko politikoki zuzen jokatzea, moralagoa ez ezik, historian **efikazagoa** ere badela, luzarora. Piarres Xarriton

---

efikazia *iz* eraginkortasuna, nahi edo espero den ondorioa lortzeko ahalmena.

Diru politikaren eraginkortasunari buruz (bi eraginkortasun motei buruz, alegia, **efikazia** eta efizientziari buruz), beharrezkoa da esatea [...]. Iñaki Heras

Testuingurua da, alemanek lortu duten Estatu zerbitzu publikoen organizazioa eta **efikazia**, espainolek ere lortu ahalko luketela hezkuntza egoki batekin. Joxe Azurmendi

Ongizate Estatuan parte hartzen duten profesionalek argi eduki beharko lukete, bestalde, beste edozeinek bezalaxe, alor horretan egiten den gastuaren **efikazia** eta efizientzia areagotzea garrantzitsua dela. Iñaki Heras

Diru politikaren izaera eta **efikaziari** buruzko eztabaida sakona da ekonomian. Iñaki Heras

Komunikazioa gehiago maite du venezuelarrak **efikazia** baino. Pako Aristi

Baliabide eszenikoak guztiz urriak dira, nahiz eta **efikazia** handikoak izan eta alde horretatik aipatzekoa da argitzapenak magia uneak sortzeko duen gaitasuna. Berria - Kultura

Gure Ertzaintzak ere hor egon behar du, Parisen edo Bruselan, delinkuentzia edo ETAren indarkeria **efikazia** handiagoz erasotzeko. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **efikazia eta** (3); **eta efikazia** (3)

---

efimero *(ETCn **107** agerraldi; orobat **efemero** ETCn **14** agerraldi) izond* iraupen gutxikoa.

Efimeroak garela entzutea oso gogorra da, edo zaharrak izango garela, edo higatu egingo garela... Ana Urkiza

Irudi berriek taigabe die eremua jaten aurrekoei, ezinago agudo sortuz eta suntsituz doan gaurkotasun **efimeroan**. Jose Angel Irigaray

Maitasuna ordezkatzen duen istant zoriontsu **efimeroa**. Karlos Linazasoro

Lore **efemero** bezain dotore haiek ekartzen zioten gogora zein iragankorra den bizitza. Imanol Zurutuza

Horregatik gogoratzen ditu, nostalgia apur batez, Ondarearen Babeserako Elkartearen egun **efimero** haiek. Iban Zaldua

Lilura eta amets **efimeroa** da hemen salgai dagoena, zorioneko "zoriontasun" hori azpititulu. Edorta Agirre

Hori ere desagertua zen: haien dirdira **efimerotik** deusek ere ez zuen irauten. Monika Etxebarria

---

efiziente **1** *izond* lan edo egiteko bat erabat ondo betetzen duena.

Langilea eta **efizientea** genuen gure sheriffa, ordea, eta ez zeukan auzia ahaztuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Heziketa zabalago eta **efizienteagoak** lagunduta, adimenaren maila gorakora hel daiteke, baina ez arrazoimenarena. Jenaro Garate

Merkatuak, lehiaren bidez, ekonomia osoaren funtzionamendu **efizientea** bermatzen du. Iñaki Heras

Ondasunen esleipen **efizientea**. Iñaki Heras

Afrikar ekoizleek, ekoizle **efizienteak** eta merkeak izan arren, beherakada handiak izan dituzte esportazioetan. Iñaki Heras

2 kausez mintzatuz, bere ekintzaz efektu bat dakarrena.

Haatik, argi eta garbi esaten digu filosofoak diren gauzen kausak lau direla: kausa materiala (kobrea), formala (zizelkariaren espirituan den irudia), **efizientea** (zizelkaria bera) eta finala (zertarako den egin tailua). Askoren artean

Ez beza inork borondate okerraren kausa **efizienterik** galdetu; ez delako **efizientea**, defizientea baino; eta ez delako joera, alde egitea baino. Jenaro Garate

---

efizienteki *adlag* modu efizientean.

Ikuspuntu horren ondorio logikoa da, merkatuak **efizienteki** aritzen direnez, ez jotzea beharrezkotzat estatuaren esku-hartzea ekonomian. Iñaki Heras

---

efizientzia **1** *iz* lan edo egiteko bat erabat ondo betetzeko ahalmena.

Ongizate Estatuaren auzia, ekitatearen eta **efizientziaren** arteko gatazkatzat saldu nahi izan da. Iñaki Heras

Merkatuaren funtzionamendu askeak **efizientzia** ekonomikoa bermatzen duela. Iñaki Heras

Sistemak itxuratzen du gizakia, baina beti ere, azken helburua den **efizientzia** ekonomikoaren mesederako. Iñaki Heras

2 (hitz elkartuetan)

Argi dago desberdintasunak muturrera eramaten direnean, ekonomia, **efizientzia** arazoa ez ezik, iraunkortasun arazoa ere sortzen dela gizarteetan. Iñaki Heras

Mitoa osatzeko, horra beste uste bat, edozein erakunde edo enpresa publikotan, **efizientzia**-eza dela nagusi. Iñaki Heras

· "Gizateriaren arazo politikoa", zioen Keynesek, "hiru gauza bateratzean datza: ekonomia **efizientzia**, justizia soziala eta gizabanakoaren libertatea". Iñaki Heras

---

efloreszentzia *iz* elkartuta dauden loreen multzoa.

Zapi hark lore tropikal arraro bat ematen zuen, begia berehala jotzen zizun **efloreszentzia** bat, liburuz estalitako gela hartako giro marroi grisaxkan. Oskar Arana

---

efod *iz* israeldar apaizak erabiltzen zuen liho finezko jantzia.

Ekarri zion Abiatarrek Davidi **efoda**. Elizen arteko biblia

Ondoren, tunika jantzi zion Aaroni, gerrikoaz lotu eta mantua jarri; gainetik **efoda** ezarri zion eta xingolaz lotu. Elizen arteko biblia

Efoda, urrez, purpura more, gorri eta gorriminez eta liho-hari bihurrituz apain bordaturik egingo dute. Elizen arteko biblia

Ertzak lotzeko xingola **efodari** atxikia egongo da. Elizen arteko biblia

Efodaren azpiko mantua purpura morez egingo duzu. Elizen arteko biblia

Bi sorbalda-babeski egin zizkioten **efodari**, bi ertzetatik lotzeko. Elizen arteko biblia

Lihozko **efod** apaiz-jantzia ere bazeraman soinean Davidek. Elizen arteko biblia

Doeg edomdarrak jo eta hil egin zituen apaizak; lihozko **efod**-jantzia soinean zeramaten laurogeita bost gizaseme hil zituen egun hartan. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apaiz nagusiaren efod (3); **efod apaiz** (6); **efod apaiz jantzia** (5); **efod jantzia** (4); **efod jantzia eta** (3); **efodaren sorbalda** (6); **efodaren xingola baino** (4); **nagusiaren efod jantzia** (3)

---

efraimdar *iz* Efraimen leinuko pertsona.

Efraimen leinukoek ezin izan zituzten bota Gezerko kanaandarrak; horregatik, kanaandarrak **efraimdarren** artean bizi izan ziren Gezerren. Elizen arteko biblia

Jeroboam, Salomonen zerbitzaria, Nebaten semea, Tzeredako **efraimdarra** zen; Tzerua izeneko alargun bat zuen ama. Elizen arteko biblia

Kanaandarrak **efraimdarren** artean bizi izan ziren Gezerren. Elizen arteko biblia

Hankapean zapalduko du **efraimdar** mozkorren koroa harroxkoa. Zikrik, gudari **efraimdar** adoretsu hark. Elizen arteko biblia

Nor zara zu, Akior, eta nortzuk zuek, **efraimdarren** saripeko gudariok, guri gaur honelako profezia egin eta israeldar horiei ez erasotzeko esateko, beren Jainkoak babestuko dituela eta? Elizen arteko biblia

Efraimdarrek menperatu dute Amalek; haien atzetik benjamindarrak datoz, beraien gudari artean. Elizen arteko biblia

---

efratar *iz* Efrataren leinuko pertsona.

David, lehen ere aipatua den **efratar** baten semea zen, Judako Belengo Jeserena, alegia. Elizen arteko biblia

Elkana **efratar** leinukoa zen. Elizen arteko biblia

Efratar leinukoak ziren, Judako Belengoak. Elizen arteko biblia

---

efusibidade *iz* efusiboa denaren nolakotasuna.

Matildek **efusibidade** larregiz hartu zuen Matias, gurutzadetatik bueltan baletor bezala. Unai Elorriaga

---

efusibo *izond* onginahiko eta alaitasunezko sentimenak nabarmen erakusten dituena.

Hori guztia nahiko modu **efusiboan** esan zuen Dimasek, eskuak asko mugituta. Unai Elorriaga

Ondoren, komentario **efusibo** hori ilustratzeko, komenigarria izaten da hiruzpalau musikari beltzen izenak aipatzea, hurrenez hurren. Unai Elorriaga

---

egarbera *izond* egarri dena; egarri izateko joera duena. • *irud/hed*

Behin gauzadia mugida egokietara jaurtia izan denean, urte mordo luzez eusten dio, eta egiten du ezen ibaiek euren urtza ugariz itsaso **egarbera** horni dezaten. Xabier Amuriza

Gauza bera gertatzen zaio arima **egarberari** ere, zakur-taldetik askaturik, graziaz fidaturik eta sendoturik, zeruko Aitagana iristen denean. Joan Mari Lekuona

Era berean dakusgu maskorren espezieak lurraren altzoa margotzen duela, itsasoak uhin leunez harea **egarbera** lisatzen duen hondartza kurbatuan. Xabier Amuriza

Orain basamortuan dago landatua, lurralde lehor eta **egarberan**. Elizen arteko biblia

Maitasun sugarra pizten da ariman, non txinparta gozoak saltatzen baitira eta Jainkoaganako sentipen **egarberak**. Joan Mari Lekuona

---

egari, egarten du *ad ipar* jasan, eraman.

Indioek dena pazientzia handiz **egarten** dute. Gotzon Garate

Maratoiaren kurritzeko, abilleziaz beste kalitaterik behar da, eta holako lasterka lüzea da ekonomia, zühürki **egartekoa**. Herria

Bena Izkiribü Saintüen ondoan, tradizione lüze bat **egarten** dü Eliza Katolikoak bere doktrinaren alde. Herria

---

egarri **1** *iz* edateko beharra edo nahia.

Gosea eta **egarria**, logalea eta nekea eta beste mila ezbehar jasanez. Joan Mari Lekuona

Alimaleko ostatu eder batean **egarria** hautsi dit garagardoak. Piarres Aintziart

Hura **egarria**! Txillardegi

Ez zuten izan **egarririk**, eremu lehorretan zehar eraman zituenean. Elizen arteko biblia

Orduan, ura eman zenien harkaitz latz batetik, **egarriarentzako** erremedioa harri gogorretik. Elizen arteko biblia

Mintzatzeak **egarria** areagotzen zuen, besterik ez. Joxe Austin Arrieta

Argia ez ezik, beroa goraka ari zen gela barnean, eta **egarriak** -ginebrak eztarrian uzten duen lorratz zakarrak- jarrarazi ninduen ohe gainean. Aingeru Epaltza

Egun batzuk urik aurkitu gabe harat-honat eman nituen, edo egun bakar bat, izugarri luzea, eguzkiak, **egarriak** eta **egarriaren** beldurrak berretua. Juan Garzia

Oinutsik ibili beharko duzu bestela, eztarria **egarriak** lehorturik. Elizen arteko biblia

ik beherago 7. Askoren artean

Gorputz asko, **egarriak** eraitsiak eta kalean iraulka, iturri tutuen azpian luze zeutzan. Xabier Amuriza

Kondairaren arabera, hemen gelditu zen beilari bat, leher egina eta **egarriak** itoa. Piarres Aintziart

Bat-batean **egarria** daukat. Harkaitz Cano

-Ez dute gehiago ez goserik ez **egarririk** pairatuko, eta eguzkiak edo ezein berokeriak ez ditu trabatuko. Itxaro Borda

Egarritik eta ekaitzetik libratuak. Askoren artean

Uda hartan bertan hil zen emakumea, eta nik ahaztu egin nuen, nonbaiten **egarria** asetzeko edan duzun ura ahazten duzun bezala. Joxe Austin Arrieta

Egarriaren kentzeko, errekako eta putzuetako ura edaten zuten, lohitua baldin bazen ere. Eneko Bidegain

Egarria kenduko duen edaria leunagoa, atseginagoa eta gozoagoa izan dadin. Joan Mari Lekuona

2 irud/hed

Zeren eta halakoa baita libertatea: gose bat da eta **egarri** bat da, lur batetik bertze baterat garamatzana eta nekez ase dezakeguna. Joan Mari Irigoien

Honela, jakinduriaren **egarriak** erregetzara darama. Elizen arteko biblia

Eta goseak eta **egarriak** nesken gibeletik ninderamaten, nola imanak burdina, indar ezkutu batek bulkaturik. Joan Mari Irigoien

Zergatik jarraitu luzaroago heziketarik gabe, zuen barrenak hain **egarri** diren bitartean? Elizen arteko biblia

Asisko Frantziskoren giza abentura iturri aberatsenetakoa dugu erretzen gaituen **egarria** asetzeko. Askoren artean

Ez gogo, ez gura, ez gale, ez **egarri** eta ez gose den diru-gosea. Iñaki Segurola

Ez neukan goserik, ez **egarririk**, emakume haren hitzena izan ezik. Hasier Etxeberria

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Egarri handia zuen. Iñaki Mendiguren

Sansomek **egarri** handia sumatu zuen. Elizen arteko biblia

Orain **egarri** latza nabari zuen. Anton Garikano

Ostatu batean sartu naiz, **egarri** eta gose gorrian bainaiz. Piarres Aintziart

Heriotzako okerrik handiena gizajoak **egarri** goriak kiskaltzea eta xigortzea balute, edo beste zerbaiten irritsak joko balitu bezala. Xabier Amuriza

Egarri kiskalgarri batek itotzen ninduen, eta zurrutada batez hustu nuen edontzia. Koro Navarro

Gaur tailerretan jendeak **egarri** ederrak pasatu behar dituela iruditzen zait. Pedro Alberdi

-Infernuko sutan **egarri** eternalez biziko ahal da berori! -esan nion. Edorta Jimenez

Gudariek sentitzen zuten **egarri** ase ezin hura. Askoren artean

Ezintasun honek **egarri** emagaitza pizten zuen nigan. Txillardegi

Bezperako ibilerak pizturiko **egarri** lizuna asetzeko. Migel Angel Mintegi

4 (adizlagun gisa)

Gau asko lorik egin gabe; gose eta **egarri**; maiz ezer jan gabe, hotzak eta jantzirik gabe. Elizen arteko biblia

Baina lo nengoen oraindik, erabat hebainduta, **egarri** ere bai, nahiz eta ezin deus esan. Joxe Austin Arrieta

Gose bezain **egarri**, edo alderantziz, laster ohartzen naiz, eskuin, Bar León idazkiari. Piarres Aintziart

Italiarrek zergatik eskatzen dituzte beti negu epelak, gure Getulia errukarria beti **egarri** bizi den bitartean? Imanol Unzurrunzaga

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Marisol Iparragirre, Anboto erraiten diotena, Salisen arrastatua joanden urrian eta ETA-ko kide ekarria, gose eta **egarri** greban jarri da Gradignan herriko presondegian. Herria

Ospitaleratua izan ostean, preso tolosarrak hiru egun lehenago hasitako gose, **egarri** eta medikazio greba utzi egin zuen. Berria - Euskal Herria

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Han zetorren Siberia aldeko iparrera doazen ibai handietako urak, egundoko kanalizazio bat medio, hegoaldera, horrenbesteko ur **egarria** duten lurralde emankorretara desbideratzekoa. Pello Zabala

Hara lurrera gosea bidaliko dut, ez ogi-gosea, ez ur-**egarria**, Yhwh-ren hitza entzutekoa baizik. Xabier Kintana

Inkisizioaren odol-**egarriak** luzeak ditu atzaparrak eta zorrotzak hortzak. Anjel Lertxundi

Petrolio **egarri** hori da, hain zuzen ere, prezioaren igoeraren arrazoi nagusietako bat. Berria - Ekonomia

Bada, ordea, kontakizun honetan deigarri eta harrigarri gertatzen den gauza bat: mendeku **egarria**, alegia, eta hau asetzeko erabiltzen den grina. Jose Antonio Mujika

Kultur **egarria** ulertu ezin zuen ingurune horretan, Baserriren mingain eskolatuak bazuen meriturik. Anjel Lertxundi

Infinitutasun **egarriak** iturri hartarat garamatzala. Joan Mari Irigoien

Ez dakit parte onekoa ote den, gero, festa-**egarri** demaseko hau. Joxerra Garzia

Askatasun **egarria**, eskubide kolektiboak, autodeterminazioa. Iñaki Segurola

Aberastasun **egarriak** eta negozioaren ardurak preso hartuta, ukatu egin zion limosna. Askoren artean

Nolabait esateko, diru-tragoxka hark aitaren zekenkeri **egarria** baretu zuen. Askoren artean

Ikas **egarrian** gara. Berria - Kultura

Hura lortutakoan, beste bat nahi dugu, eta bizi-**egarri** leratsu berak gauzka beti. Xabier Amuriza

7 ***egarriak*** *adlag* egarriz.

Egarriak nengoen, baina ez nuen ura edateko gogorik. Anjel Lertxundi

-Ja, ja, ja, entzun duk, **egarriak** zagok gure bezeroa! Koldo Izagirre

Egarriak hil behar ditek bero honekin! Koldo Izagirre

Motelegi ez ote goazen ere ematen diot tankera, ez dakit, **egarriak** hil nahiko naute menturaz. Koldo Izagirre

Bost egun egin zituzten basamortuan, ekialderantz, itsasertzerantz joz, urik gabe, **egarriak** erretzen, haluzinaziotan. Josu Zabaleta

Goseak, **egarriak**, unatuak, horra nola zaudeten, harri mortu honetan orenetan ibiliak. Xabier Montoia

Orain arte hor ibili gara goseak, **egarriak**, larrugorri eta gaizki erabiliak. Elizen arteko biblia

Ez baitzuen behar adina ur ere edaten, **egarriak** itotzen bazegoen ere. Askoren artean

Haurrak makaldurik zeuden, emakumeak eta gazteak **egarriak** hilda. Elizen arteko biblia

Buruko mina daukazu, oinetan hotza sentitzen duzu, goseak eta **egarriak** zaude. Joan Mari Lekuona

Esteparen erdian utzi zuten, goseak eta **egarriak** hiltzeko. Karlos Zabala

8 ***egarri izan*** da *ad* ik **egarritu**.

-Egarri naiz! Koldo Izagirre

-Nora hoa? -Simonen boza aditu nuen. - **Egarri** nauk -erantzun nion. Edorta Jimenez

-Eskerrik asko, amatxo, ez naiz **egarri** . Anjel Lertxundi

Orain naiz ni **egarri** , inoiz **egarri** izan banaiz. Edorta Jimenez

Zauriek bakarrik ematen didate min eta gehienez ere -beti bezala- **egarri** naiz, oso, sukarrarengatik ziur aski. Urtzi Urrutikoetxea

Hain naiz **egarri** non uste baitzait, aska xuku xukua ikusirik, agortua dela iturria. Piarres Aintziart

Egarri dena betor niregana, eta edan beza. Elizen arteko biblia

Zeren eta ene bihotza ezagutzen ez nuèn mundu eme urtsu haren **egarri** baitzen. Joan Mari Irigoien

Egarri denari neuk emango diot doan biziaren iturburutik. Elizen arteko biblia

Ez dira gehiago gose, ez **egarri** izango, eta ez ditu eguzkiak, ez sargoriak joko. Elizen arteko biblia

Ene gogoa zure **egarri** da gauean, ene barrenak zu bilatzen zaitu goizean. Elizen arteko biblia

Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; **egarri** , eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen. Elizen arteko biblia

Biziki **egarri** gara. Marzel Etxehandi

Philippe itsuski **egarri** zen. Itxaro Borda

· Jaten nautenak are goseago izaten dira nitaz, edaten nautenak are **egarriago** . Elizen arteko biblia

9 *egarri egon*

Egarri dago Bera gugan maitasunaren eta graziaren egarria sortzeko, eta horregatik zuen oihukatu: [...]. Joan Mari Lekuona

-Ez dago **egarri egon** beharrik. Anjel Lertxundi

-Bai, **egarri** egon behar duzu! Koldo Izagirre

Neu ere borroka-**egarri** nagok. Juan Kruz Igerabide

10 ***egarriz*** *adlag* egarriturik.

Egarriz itotzen zegoen eta mina zeukan eskuetan, batez ere koskorretan eta hatzetan. Anton Garikano

Urik gabe arrainak **egarriz** hil eta usteldu egiten dira. Elizen arteko biblia

Lehor dute mihia **egarriz** . Elizen arteko biblia

Denak odol-**egarriz** daude. Elizen arteko biblia

Etorkinak gosez eta **egarriz** hiltzen ari dira Saharako basamortuan. Berria - Harian

Gose-**egarriz** hilzorian zeuden, adorea galdurik. Elizen arteko biblia

Deerek, mendeku **egarriz** , ez zion esaldia amaitzen utzi. Karlos Linazasoro

Zakil **egarriz** zegoen potxon irrikatsu bati ene esnea eskaini nion. Aitor Arana

Bizimodua aldatzeko **egarriz** eta ilusio handiz geunden, Parisa, Marcel Martinek beste inork ez bezala kantatu duen hiri zoragarrira, denboraldi luze bat pasatzera joateko. Ramon Saizarbitoria

Halaxe egin zuen Jules Vernek ere bere pertsonaiekin: munduko alderdi arriskutsu haietara bidali, eta haien abenturak eskaini zizkien horrelako istorio bizien **egarriz** zeuden mendebaleko irakurleei. Karlos Zabala

Odol beltza edan gabe ezin bizi eta **egarriz** amorratzen zebilen dragoia igeri Ohion. Anton Garikano

11 ***gose-egarri***

Ez ogi-gosea, eta ez ur-egarria, Jaunaren hitza entzuteko **gose-egarria** baizik. anaiak urrutiko lurraldeetara bidali baditut nekeak eta lotsa, **gose-egarriak** eta beste hainbat premia jasatera. Elizen arteko biblia

Izan ere, barruan daramazun haurra esnarazten dizu, zeuk duzun onena, absolutuaren gose-**egarria** , gizadi berri baten amets utziezina... Askoren artean

Neu izango naiz haien **gose-egarriak** aseko dituena, Konformidadezko hiritar bertangoxo eta bakezkoa, galdu-usterik eta deusen **gose-egarririk** gabea. Imanol Unzurrunzaga

Jakite behin-betiko eta gogobetegarrian ez dago deusen **gose-egarririk** eta gogorik, eta beraz, ezta bizirik eta arnasarik ere. neu izango naiz haien **gose-egarria** aseko dituena. konformidadezko hiritar bertangoxo eta bakezkoa, galdu-usterik eta deusen **gose-egarririk** gabea. Iñaki Segurola

Dastatu zaitut eta **gose-egarri** naiz; ukitu nauzu eta zure bakeak sugarretan nauka. Imanol Unzurrunzaga

Eta **gose-egarrizko** sentimendua zen, bertzalde. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askatasun egarri (3); **baina egarri** (3); **beti egarri** (3); **bizi egarri** (3); **edo egarri** (3); **egarri baitzen** (3); **egarri bat** (3); **egarri bizia** (3); **egarri da** (7); **egarri den** (4); **egarri dena** (6); **egarri dena betor** (5); **egarri denari** (5); **egarri diren** (3); **egarri direnak** (3); **egarri eta** (18); **egarri eta medikazio** (11); **egarri ez** (3); **egarri greba** (15); **egarri greba abiatu** (3); **egarri greba hasi** (3); **egarri greba utzi** (3); **egarri greban** (11); **egarri grebaren** (3); **egarri grebari** (4); **egarri handia** (6); **egarri handia sumatu** (3); **egarri hori** (3); **egarri izan** (4); **egarri izango** (11); **egarri naiz** (16); **egarri nauk** (3); **egarri nintzen** (6); **egarri zela** (3); **egarri zen** (15); **egarri ziren** (3); **eguneko egarri** (3); **ere egarri** (5); **eta egarri** (59); **eta egarri greba** (13); **eta egarri greban** (9); **eta egarri grebaren** (3); **eta egarri grebari** (4); **ez egarri** (4); **ez naiz egarri** (4); **gose egarri** (7); **gose eta egarri** (39); **kant egarri** (3); **naiz egarri** (5); **odol egarri** (3); **petrolio egarri** (3); **zein egarri** (3); **zure egarri** (4); **zure egarri da** (3

askatasun egarria (5); **bere egarria** (3); **deusen gose egarririk** (3); **edo egarria** (3); **egarria ase** (11); **egarria asetzeko** (12); **egarria asetzen** (6); **egarria asetzera** (3); **egarria duten** (3); **egarria eta** (7); **egarria eta gosea** (3); **egarria ez** (3); **egarria kentzeko** (4); **egarria ondo** (3); **egarriak eta** (8); **egarriak hil** (4); **egarriak itota** (4); **egarriak itotzen** (6); **egarriaren egarriz** (3); **egarriaren egarriz** (3); **egarririk ez** (3); **egarriz eta** (8); **egarriz hiltzen** (6); **egarriz hiltzen ari** (4); **eta egarria** (28); **eta egarriak** (16); **eta egarriz** (10); **gose egarriak** (6); **gose egarririk** (6); **gose egarriz** (3); **gosea eta egarria** (11); **goseak eta egarriak** (8); **gosez eta egarriz** (7); **mendeku egarria** (6); **nire egarria** (3); **odol egarria** (3); **odol egarriz** (3); **ur egarria** (4)

---

egarritu, egarri(tu), egarritzen **1** da *ad* egarria sentitu, egarri izan.

Goseak nago eta jan egiten dut; **egarritu** naiz eta edan egiten dut. Joan Mari Lekuona

Zeldan ez zen xurrutarik, **egarritzen** zirelarik ur xorta baten edateko edota goizetan ahoa eta aurpegiaren xafarrikatzeko. Eneko Bidegain

Egarritzen ari naiz, Fermin, kostoa izango da. Pako Aristi

Errepide luzean barrena, beroaren lurrunean desagertzen ziren auzo-lur amaigabeen artean, aurrera egin genuen arratsaldeko eguzkiaren azpian, **egarritzen** eta logaletzen hasita, baina urratsa moteldu gabe. Koro Navarro

Nola mehatxatu zintuen **egarritua** zegoen gizon honek? Koldo Izagirre

Bideko nekeagatik **egarrituta** zegoenez, iturriko ura edaten hasi zen, eta iruditu zitzaion deabruak irentsi zituela. Askoren artean

Lurra arrunt **egarritua** ... Herria

Ur-galera garbia izaten du gorputzak itsasoko ura edan eta gero, eta lehen baino **egarrituago** geratzen da biktima. Irene Aldasoro

• **2** du *ad* egarria sentiarazi.

Hauen merkantzia guztia erosi behar izateraino **egarrituko** naute, dendari onak dira. Koldo Izagirre

Han ez dago sororik, urik ez baitago, eta uraren falta zen gatibuek gehien nozitzen zutena, ibilaldi nekezak **egarriturik** . Karlos Zabala

3 (era burutua izenondo gisa)

bere ardurapean egongo dela bidaiari **egarrituei** ur hori oparitzea nire izenean. Hala asetzen zutela haren hitzek ene bihotz **egarritua** , xortaz xorta. Jon Arretxe

Ura isuriko baitut lur **egarrituan** , urlasterrak sortuko landa lehorrean. Elizen arteko biblia

Mortubidean dauden lurralde **egarrituak** ere. Pello Zabala

Nola eskuratu, ordea, seko drogatuta zeuden ikusle odol-**egarrituen** sinpatia? Karlos Linazasoro

4 (era burutua izen gisa)

Jesukristoren manua gogoan duzu oraino: eman ura **egarrituari**. Ipar haizea baino atseginagoa, **egarrituarentzat** ur freskoa baino eztiagoa eta gizon zuhurrarentzat osasuna baino erakargarriagoa izaki, damaskoar guztiak ingurura bildu zitzaizkion. Xabier Montoia

Gosetuek jango dute hark bildutako uzta, kendu egingo diote, arantzazko hesiak jarri arren; **egarrituek** zurrupatuko diote ondarea. Elizen arteko biblia

Beste eskuarekin, gizonak kokotsa hartu zion, eta jaso egin zituen beragana neskaren ezpainak; akaberan, **egarritu** batek ur freskoko erreka batera nola, halatsu hurbildu zion ahoa. Patxi Zubizarreta

---

egarti 1 *izond* egarri dena.

Txinatar edo filipinar edo ez dakit nongo hark, oholtzaren gainean, begi **egartien** aurrean, alutik, zilarrezko zapata takoidunek mugarritutako alutik atera zuen hiru metroko nakarezko idunekoa. Eider Rodriguez

Bere aurpegian metafora bako begi **egartiak** ikusten ditut, poesiaz biluzturiko bere mingain luzea zure alu argi eta udatiarra miresten. Eider Rodriguez

Edan nahi duen ibai nahasiaren erdian alferrik tematzen eta egarritzen den **egartia** bezala, halaxe engainatzen ditu simulakroekin Venusek maitaleak. Xabier Amuriza

Aurpegiz itsusi iruditu zait ("hala ere, barkagarri" ihardetsiko lidake "ar" **egarti** batek). Txillardegi

2 (adizlagun gisa)

-Kaixo, eder! -nik aurretik aukeratutako hitzez, eta begiradaz **egarti** laztantzen nuelarik. Txillardegi

---

egartsu *izond* egarri handia duena.

Urera ginenian, ez ginen **egartsu**. Herria

Azkenik, munduko gainontzeko herrien alde askapen asmorik onenak izan eta ezker-eskuin aldarrikatzen dituen oro, asmo horiek bete arte gelditu gabe, arazoa doakionak baino hobeto ezagutzen duela ziur baitago, mendeetan zehar praktiketan aritu eta borrokalari, askatasun-**egartsu**, menperatu eta biktima bezala ezaguera zabala eta mingotsa metatu duelako. Iban Zaldua

---

egatx ik **hegats**.

---

egaxo *iz* ijitoa ez dena.

Larregi hurbildu barik egin du mahairik mahaiko bidea Haritzek, saltzaileek, ijito zein **egaxo**, etxekoandreei dei egiten dietela aprobetxatuz. Urtzi Urrutikoeetxea

Bizpahiru lagun, ijito zein **egaxo**, ikusi zituen autoan konponketak egiten ari zirenaren itxuratan. Urtzi Urrutikoeetxea

Bizpahiru lagun, ijito zein **egaxo**, ikusi zituen autoan konponketak egiten ari zirenaren itxuratan Urtzi Urrutikoeetxea

---

egazkin ik **hegazkin**.

---

egi ik **egia**.

---

egia *(orobat **egi** g.er.)* 1 *iz* denarekin, izan denarekin edo izango denarekin bat datorren zera; baliorik gorena ematen zaion jakitea; arrazoiaren arabera ezin uka daitekeen esaldia. (ikus beheko konbinatorian egia izenaren agerraldi maizkoenak)

2 *egia esan* *(**1744** esaldi, **202** liburu eta **316** artikulutan) lok*

Egia esan, ez dizut ulertzen. Jose Morales

Egia esan, nik ez zioat deus erromantikorik ikusten ezkontzeko eskea egiteari. Antton Olano

Egia esan, ez dut ausardiarik beren buruak goraipatzen dituzten horien pareko edo kidekotzat neure burua emateko. Elizen arteko biblia

Lehenengo egunetik bertatik errezelak egin behar izan genituen; **egia esan**, ez dute izen hori merezi, trapu zati batzuk baizik ez baitira. Josu Zabaleta

Nik, **egia esan**, ez nizun antzik eman hasieran, kaskoak arrunt aldatzen du itxura. Koldo Izagirre

Eta **egia esan**, aizu, nik ez dakit zer ikusi zion mutil horri, benetan esaten dizut. Antton Olano

Joanek, **egia esan**, ez zuen mirarizko seinalerik bat ere egin, baina honetaz esan zuen guztia egia zen. Elizen arteko biblia

Baina, **egia esan**, zer pentsatu ez dakit. Hasier Etxeberria

Wendyk sentitu zuen emakume bihurtu zela goitik behera, nahiz eta, **egia esan**, Wendyk goitik behera zeukan distantzia ez zen oso handia. Julen Gabiria

Itsasoa urdin sakona zen, zerua baino mila aldiz urdinagoa eta bai ederragoa ere **egia esan**, eskuekin heldu eta ukitu baitzitekeen. Matías Múgica

Ez dinat amarik, eta ezta, **egia esan**, ahaiderik ere. Antton Olano

Neure eskua berearen gainean pausatu nuen; zer esan handirik otu ez niri une hartan, **egia esan**; kafea edan eta zigarreta erre, nik. Joxe Austin Arrieta

Eta beste zerbaitek ere bai, **egia esan**: Hanna ni kontsolatzen ikusteak, berak ez baitu estatistikan sinesten. Joxe Austin Arrieta

Bitxia iruditzen zait, **egia esan**. Bernardo Atxaga

Zertarako ez nekien, **egia esan**. Txillardegi

Ez dakidana da zertarako zaudeten zuek, **egia esan**. Harkaitz Cano

Zerbait originalagoa espero ninan Alexengandik, **egia esan**. Fernando Morillo

Geldotasun harrigarria nabaritu zuen eskolan eman zuen denbora guztian; gaixotasunaz geroztik ere bai, **egia esan**. Xabier Olarra

3 *egia esateko* *(**439** esaldi, **96** liburu eta **46** artikulutan) lok* egia esan.

Egia esateko, datak ez du garrantzirik, baina astelehen goiza zen. Ramon Saizarbitoria

Egia esateko, gizarte erasotuak ez dira beti itsuak izaten, kultur elementu itxuraz hutsal eta kaltegabeenari sartzen utziz gero ziur aski etor litezkeen ondorioei buruz. Iñaki Mendiguren

Egia esateko, Juanitok ez zekien Venezuela arraio hori zein tokitan zegoen. Xabier Etxabe

Baina, **egia esateko**, bere arreba zaharrena ezkontzen da bi aste barru Holandan eta hara joan beharko dugu zuengana baino lehen. Arantxa Iturbe

Ez da, **egia esateko**, lan zaila. Rafa Egiguren

Bueno, **egia esateko**..., lagun batzuekin gelditu naiz. Pako Aristi

Nik dakidala, **egia esateko**, ez zuen maitalerik edo gisakorik hil zutenean. Migel Angel Mintegi

Bi zaldi txortan, **egia esateko**, oso ikuskizun ederra da. Karlos Zabala

Nik berak baino hobeto egiten ditut ia, baina, **egia esateko**, ez berari ez niri ez zaizkigu ateratzen, eta Margoti deitu behar izaten diogu beti. Josu Zabaleta

Baina, tira!, gaueko ordu txiki haietan, edozer gauza gerta zitekeen, **egia esateko**. Antton Olano

Ez dakit, **egia esateko**. Anjel Lertxundi

4 *egiatan* *(197 agerraldi, 58 liburu eta 21 artikulutan)* *adlag* benetan.

"Egiatan?" Harrituta zegoen maistra. Bernardo Atxaga

Egiatan ez dakizu gauzak alde onetik hartzen! Karlos Zabala

Egiatan, ez duzu ama ezagutzen nik ezagutzen dudan bezala. Koro Navarro

Egiatan diotsut mundua ez dela guk uste bezain atsegingarria. Jon Muñoz

Egiatan, adiskide on eta maitea, zure gutuna irakurririk doi-doia begiratu ahal izan naiz harroaldi batetik. Jon Muñoz

Egiatan miretsi zuen hasiera batean. Lutxo Egia

Eta esnatzen nintzenean erabat hebaindua aurkitzen nintzen, **egiatan** erori izan banintz bezala. Patxi Ezkiaga

Hankaluzek dioena zuzena da, baina ezin dugu besterik gabe baztertu **egiatan** gertatu izana. Koldo Biguri

Axioma hauek **egiatan** handitasunei (quanta) handitasun gisa soilik dagozkie. Ibon Uribarri

-Ez, **egiatan**, Marjorie, ez nekien hor inor bazenik. Koro Navarro

Bazekien ez zela **egiatan** ari. Koro Navarro

Oso-oso gaizki zeuden, **egiatan**. Koro Navarro

5 *egiaz* *(980 agerraldi, 121 liburu eta 31 artikulutan)* *adlag* benetan.

Egiaz diot. Joan Mari Lekuona

-Egiaz, ez dakit zer egin dezakegun -esan zuen Bioletak. Oskar Arana

Egiaz, 1226ko urriaren 3ko ilunabarrean hil zen Frantzisko. Askoren artean

Egiaz mintzatu zen, xalotasunez, eta Hamidak ezin haren ahotsaren beroari entzungor egin. Patxi Zubizarreta

Egiaz tiro egin zidanean, ordea, zalantza sortu zitzaidan: zer sentitzen ote zuen, zinez, nirekiko; zazpi urteko elkarbizitzan zehar, ikusiko al zuen niregan ere halako bilakaerarik aldaketarik? Patxi Zubizarreta

Egiaz zuk agindurik egin al dute hori? Elizen arteko biblia

Eta **egiaz**, itsusia bilakatu naiz. Itxaro Borda

Ez da hala: **egiaz** nekazaritzan diploma bat besterik ez dauka.Hauxe duk errealitatea: hik, **egiaz**, gorrotoa hidan, hogeita lau urtez gorrotatu ninduan. Alberto Ladron Arana

Hori, **egiaz**, iseka hutsa besterik ez baita. Xabier Kintana

Errege Beltzak, **egiaz**, Domenico zuen izena, Domenico Torrelli, Torricelli edo halako zerbait. Alberto Ladron Arana

Jakiteko ea Indarkeria eta Politika bereizi behar diren eta, **egiaz**, bereiz daitezkeen. Piarres Xarriton

Nork du ezagutu **egiaz** Jainkoak naturari emaniko bikaintasun eta noblezia? Joan Mari Lekuona

Zinez eta **egiaz**, ez dakit zeinentzat. Joxe Azurmendi

Garai batzuetan **egiaz** "markoaren erretorika" bat izan dela esan daiteke zinez, bere irudi finkatu eta errepikatuekin. Traba eta oinazea gorabehera, **egiaz** pozten naiz gehiago atzeratu ez zaidalako. Josu Zabaleta

Hirugarren argudioari ihardesten diot, bai **egiaz** eta bozkarioz nafar kantauritarra naizela, beren Erregeei bereziki eman hitzari beti leial egon diren jendakietako semea. Piarres Xarriton

Zeren eta Amerika **egiaz** baitzen pikutara joanik. Oskar Arana

Miren zuhaitz baten kontra kukubilkaturik geratuko zen segur aski, erasoa amaitu eta luzarora ere, **egiaz** amaitu ote zen ziurtatu nahian. Ramon Saizarbitoria

Damu dut, **egiaz**, damu dut esana. Josu Zabaleta

Nazkagarria zen **egiaz** piztia-hezleak eskaintzen zuen ikuskaria. Koro Navarro

Eta lastima izan zen, **egiaz**, jauna, zeren pertsonaia bizi jaiotzeko zoria izan duenak heriotzaz ere egin dezake barre. Josu Zabaleta

Eta **egiaz**, mundu honetan ez daukagu Goi-goikoarenik ezer eta ez dugu gorputzeko begiz harenik ezer ikusten ere, Jesu Kristoren gorputz-odolak eta izen-hitzak baizik. Askoren artean

Ez, ez zen dudarik, herren egiten zuen, **egiaz**. Matías Múgica

Holandarrek ez dute juduok pairatzen ditugun miseria guztien errua, **egiaz**. Josu Zabaleta

Egoera bitxia da nire hau, **egiaz**! Josu Zabaleta

6 *egiaz egia* *(orobat egiaz egi)*

Egiaz egia erranen dizut. Janbattitt Dirassar

Beraz europatiar naizela bai, bainan barkatu **egiaz** egia erran behar ene ikusmoldea, iduritzen zaut orain egiten ari den Europa hori ez dela sanoa. Menane Oxandabaratz

Xuxen zer gertatu den, neke da haatik **egiaz egi** finkatzea. Herria

Nehori mendekatu gabe, gauzak diren bezala kondatuz, **egiaz egi** mintzatzeko axola handi batekin. Herria

Liburu aberatsa, lañoki eta sanoki idatzia! Ezagun da segurki idazleak nahi duela beti **egiaz egi** erakutsi noiz nun zer gertatu zen Ravel-en bizian... Herria

7 *egiazko* ik **egiazko**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

egi egia (20); **eta egi** (8)

agian egia (14); **al da egia** (57); **ametsa egia** (26); **arras egia** (10); **bada egia** (9); **bai egia** (10); **baina egia** (319); **baina egia da** (158); **baina egia esan** (26); **baina egia esateko** (9); **baina egia zen** (14); **bainan egia** (17); **bainan egia da** (8); **baita egia** (31); **baldin egia** (13); **bat egia** (22); **batean egia** (15); **batere egia** (8); **benetako egia** (18); **bere egia** (41); **beste egia** (10); **beti egia** (20); **bezain egia** (15); **bezain egia da** (10); **bezala egia** (10); **buruz egia** (9); **buruzko egia** (9); **da egia** (517); **da egia izango** (22); **dago egia** (12); **dakit egia** (11); **dea egia** (16); **dela egia** (71); **den egia** (42); **den egia eta** (8); **dena egia** (22); **dena egia dela** (9); **dio egia** (10); **dioena egia** (12); **dira egia** (12); **donostiako egia** (14); **du egia** (30); **duela egia** (16); **duen egia** (15) duena egia (10); **dugu egia** (8); **duk egia** (28); **dut egia** (12); **dute egia** (16); **duzu egia** (8); **ea egia** (32); **ea egia den** (13); **edo egia** (22); **egi egia** (20)

egia adierazten (8); **egia aitortu** (31); **egia aitortu behar** (15); **egia aitortuko** (14); **egia aitortzeko** (11); **egia al** (101); **egia al da** (90); **egia ala** (18); **egia ala gezurra** (13); **egia aurkitu** (12); **egia aurkitzea** (8); **egia auzoan** (10); **egia auzoko** (9); **egia bada** (113); **egia bada ere** (21); **egia baino** (17); **egia baita** (29); **egia baizik** (12); **egia baizik ez** (8); **egia bakarra** (23); **egia baldin** (56); **egia baldin bada** (37); **egia baldin bazen** (16); **egia balioa** (8); **egia balitz** (39); **egia bat** (50); **egia batzuk** (10); **egia bazen** (17); **egia behar** (11); **egia bera** (14); **egia berdaderoa** (15); **egia bere** (15); **egia besterik** (8); **egia bihur** (11); **egia bihurtu** (47); **egia bihurtzea** (10); **egia bihurtzeko** (20); **egia bihurtzen** (15); **egia biribila** (29); **egia biribila da** (9); **egia borobila** (8); **egia da** (2424); **egia da azken** (16); **egia da bai** (19); **egia da baita** (10); **egia da bi** (12); **egia da ere** (32); **egia da eta** (10); **egia da ez** (66); **egia da ezen** (8); **egia da gauza** (8); **egia da gure** (15); **egia da halaber** (8); **egia da hau** (8); **egia da hori** (71); **egia da orain** (10); **egia da oraindik** (8); **egia dea** (12); **egia dela** (128); **egia delako** (8); **egia den** (75); **egia den arren** (8); **egia dena** (28); **egia dena da** (10); **egia denik** (11); **egia diozu** (13); **egia duk** (91); **egia dun** (15)

egia edo (28); **egia edo gezurra** (8); **egia ere** (34); **egia erraiteko** (9); **egia erran** (821); **egia erran bainan** (10); **egia erran ez** (25); **egia erranen** (10); **egia erranen dizut** (8); **egia errateko** (10); **egia esan** (1718); **egia esan behar** (86); **egia esan ez** (34); **egia esan xabik** (20); **egia esanda** (148); **egia esango** (47); **egia esango dizut** (17); **egia esatea** (32); **egia esatea nahi** (8); **egia esateko** (417); **egia esaten** (75); **egia esaten ari** (9); **egia esaten dizut** (8); **egia esatera** (112); **egia eta** (126); **egia eta ederra** (8); **egia eta gezurra** (13); **egia eta justizia** (15); **egia eta zer** (10); **egia ez** (113); **egia ez bada** (11); **egia ez dela** (9); **egia ez den** (8); **egia galanta** (9); **egia gordina** (13); **egia guztia** (8); **egia handi** (11); **egia handia** (29); **egia handiak** (8); **egia hau** (30); **egia hauek** (8); **egia hezur** (8); **egia hori** (54); **egia horiek** (9); **egia horren** (9); **egia hutsa** (34)

egia itxura (8); **egia izan** (105); **egia izan arren** (8); **egia izan behar** (8); **egia izan daiteke** (9); **egia izango** (73); **egia izango da** (15); **egia izanik** (23); **egia izanik ere** (18); **egia izatea** (17); **egia izateko** (15); **egia izatera** (8); **egia jakin** (44); **egia jakin nahi** (13); **egia jakiteko** (22); **egia kontatu** (14); **egia nahi** (13); **egia oso** (15); **egia osoa** (130); **egia osoa esan** (20); **egia osoa esateko** (9); **egia osoa ez** (8); **egia ote** (84); **egia ote da** (10); **egia ote den** (11); **egia ote zen** (38); **egia zein** (10); **egia zein den** (8); **egia zela** (77); **egia zen** (266); **egia zen ez** (9); **egia zen hori** (8); **egia zera** (11); **egia zera da** (9); **egia zioela** (8); **egia zioen** (13); **egia zor** (9)

ere egia (108); **ere egia da** (52); **esan egia** (17); **esandakoa egia** (13); **eta egia** (522); **eta egia da** (116); **eta egia erran** (9); **eta egia esan** (53); **eta egia esateko** (15); **eta egia ez** (11); **eta egia hori** (8); **eta egia izan** (8); **eta egia zen** (33); **eta hau egia** (11); **eta hori egia** (16); **ez baita egia** (19); **ez da egia** (324); **ez dakit egia** (11); **ez dea egia** (15); **ez dela egia** (49); **ez duela egia** (8); **ez duk egia** (18); **ez egia** (17); **ez zela egia** (18); **ez zen egia** (44); **gabe egia** (9); **gertatutakoaren egia** (9); **guztia egia** (32); **guztiak egia** (8); **guztiz egia** (12); **hain da egia** (11); **hau egia** (35); **hori da egia** (24); **hori egia** (202); **hori egia bada** (8); **hori egia da** (58); **hori egia dela** (10); **hori egia duk** (25); **hori ere egia** (39); **hori guztia egia** (11); **hori zen egia** (8); **horiek egia** (15); **horixe da egia** (14); **horrek egia** (8); **horren egia** (10); **hura egia** (15); **inoiz egia** (8);

justizia eta egia (8); **litzateke egia** (8); **lutxo egia** (15); **nahiz egia** (9); **nahiz eta egia** (10); **nik egia** (17); **nire egia** (13); **nuen egia** (12); **orain egia** (11); **ote da egia** (8); **zela egia** (26); **zen egia** (85); **zena egia** (9); **zer den egia** (10); **zeren egia** (9); **zioena egia** (8); **zuela egia** (8); **zuen egia** (29); **zuten egia** (8)

baina egiaren (13); **baina egiatan** (12); **bere egiaren** (9); **da egiaren** (13); **du egiaren** (8); **egiak dira** (10); **egiak eta** (25); **egiak ez** (18); **egiaren alde** (22); **egiaren arabera** (14); **egiaren bila** (42); **egiaren bilaketa** (9); **egiaren errateko** (8); **egiaren eta** (34); **egiaren jabe** (12); **egiaren kontra** (9); **egiaren kontzepzio** (12); **egiaren zati** (10); **egiari zor** (38); **egiatan ari** (9); **egiatik oso** (8); **eta egiak** (13); **eta egiaren** (52); **eta egiari** (11); **eta egiarik** (8); **tarskiren egiaren** (8)

baina egiaz (21); **da egiaz** (25); **dabidek egiaz** (9); **dabidek egiaz tiro** (9); **egiaz diotsuet** (10); **egiaz esan** (8); **egiaz esaten** (9); **egiaz eta** (19); **egiaz ez** (18); **egiaz maite** (8); **egiaz nire** (8); **egiaz tiro** (13); **egiaz tiro egin** (13); **eta egiaz** (85); **hori egiaz** (10); **zen egiaz** (18); **zinez eta egiaz** (8)

---

egiabide *(orobat **egibide**) iz* egiaren bidea.

Hobengabea zela sinesten nuela eta azkenean hura preso hartu zutenak ohoraturik aterako zirela, hain gizon eta jaun handiaren aurka beren **egibidea** bete zutelakotz. Piarres Xarriton

Kausa hori bera askiko zen egiaren ezjakinean uzteko gizaki guztiak, sekulako, Matematikak ez balie haiei erakutsi beste **egiabide** bat, ez xedeez baina bai esentziez eta itxuren propietateez arduratzen dena. Piarres Xarriton

Musek kontrako hainbat gauza ikusarazten dietenez gero eta gauzetan hutsune garbia jartzeari muzin dagiotenez gero, malkarren beldurragatik, orduan **egibidea** galtzen dute. Xabier Amuriza

Hori da "Turgeniev" puba daukadanetik urte hauetan giza harremanen gezurra saihesteko ikasi dudan **egibide** berri bat. Pako Aristi

---

egiadun *iz* egia duena.

Eta gogoa maitagogo izanik, 'kontzientzia zuzena' ez da esaera egokia, **egiaduna**, 'kontzientzia bizia' baino. Jenaro Garate

---

egiantz *(orobat **egiantza**)* **1** *iz* egiantzekoa denaren nolakotasuna.

Ez dago asmatua, egia da, bizitza bera iruditzen zaigu asmatutako kontua eta asmatutako kontuak dira **egiantza** izan behar dutenak. Karlos Zabala

Ondoren, esperientziaren galbahetik pasatu, eta ezinezkoak baztertu eta **egiantz** gehienekoak aukeratu. Fernando Morillo

Topikoa dirudi, enaren kontu hark bezala, baina egia baino ez da, **egiantzik** gabeko egia, fikzio itxurako errealitatea. Imanol Zurutuza

Fikzioak, Gezur Handi moduan harturik, egiaren ifrentzutzat egiten du, egia ere irudikatu egin behar baita, **egiantzaren** bidetik. Anjel Lertxundi

Lehendabiziko irakurraldian, gutunak bazuen **egiantzaren** itxura: goiko aldean alkatearen argazkia agertzen zen eta, amaieran, bere sinadura. Txema Ramirez de la Piscina

Ni naiz horko Hester Prynne hori, Pearl-en ama, bai, eta nigan inspiraturik idatzi zuen Nathanielek nobela hori (ezingo zuen Hawthornek esan, kontatzen ari zenari **egiantza** eman nahi bazion). Anjel Lertxundi

Neure baietzari **egiantza** gehiago emateko. Jon Muñoz

Orobat zatekeela **egiantzaren** nahiz egiaren aurkakoa gutun horietan esku hartu duten zortzi edo hamar presunek izkiriatu izana guztiek berdin garbi. Jon Muñoz

Egiantzarik gabeko egitate segida bat, zin-zinez kontatuz gero makur onduriko nobela baten eitea zukeena. Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ideia horrek **egiantz** handiagoa du, baldin gogoratzen badugu idazle horiek gehienak 1840-1872 bitartean igaro zirela Donostiatik. Askoren artean

Nolanahi dela ere, hipotesi hori egin nuen, **egiantz** handikoa baita gutxienez. Josu Zabaleta

Errusiak esan zezakeen, **egiantz** engainagarriz, bere burua salbatu zuela bere ahaleginez eta munduko proletalgoaren gainerakoa salbatuko zuela bere jarraibidea eskainiz. Iñaki Mendiguren

Nolanahi delarik ere, **egiantza** eskasekoa. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta horrexeri ekin dio batek baino gehiagok, **egiantz** pretentsiorik gabe. Iñaki Arranz

---

egiantzeko *izond* egiazkoa denaren itxura duena, egiazkotzat har daitekeena.

Ongi bereizten zituen **egiantzeko** heriotza eta benetakoa. Imanol Zurutuza

Aipatu ditudan hiru egia hauetan ez gaitu inongo faltsukeriak, ez **egiantzeko** deusek nahasten. Imanol Unzurrunzaga

Gauez, kronikako gertakariak asmatuz betetzen nuen nire orria, eta gertakari horiek dexente gustatzen zitzaizkion jendeari, egiazkoak baino gehiago **egiantzekoak** zirelako. Koldo Biguri

Zeinen mintzamolde aberatsa, **egiantzekoa**, askotarikoa darabilen. Markos Zapiain

Gauza asmatuak eta, horregatik, **egiantzekoak**, zeren makina bat aldiz gertatu baitzait halako istorio bat idatzi eta, hilabete pare baten buruan, egiatan errepikatzen dela ikustea. Koldo Biguri

Lehen hipotesia: hasteko **egiantzekoena** eta frogatzeko errazena iruditu zaidana: forma ezberdineko eta denboran barreiatutako enuntziatuek multzo bat osatuko dute baldin eta objektu bat eta berberari badagozkio. egiazko toponimia-izenak, edota gertakari historikoei buruzko erreferentziak oro, mailegu gisa baino ez darabiltza egileak, fikzioa ahalik eta testuingururik **egiantzekoenean** kokatzearren kulturari eta historiari dagokienez. Xabier Arregi

---

egiantzekotasun **1** *iz* egiantzekoa denaren nolakotasuna.

Egia eta **"egiantzekotasuna"** aipatzen dituzte. Juan Garzia

Bere arauak ditu generoak: intriga, **egiantzekotasuna**... Berria - Kultura

Baina zintzotasunak alde batera lagata, egiazkotasunaz atzendurik, gatozen **egiantzekotasuna** deritzan tranpa mortalera. Iñaki Segurola

Janzkerak **egiantzekotasuna** ekarri gura zion topaketari. Lutxo Egia

Hortaz, ez zegoen aukera handirik hirugarren aldiz berriro berarekin topo egiteko, eta halaxe da, egun hartaz geroztik ez dut berriro ikusi gazte hura, **egiantzekotasunaren** lege zentzuzkoen arabera egoki denez. Xabier Olarra

Errazagoa izan zitekeen horrela, istorioak **egiantzekotasunik** gordetzen bazuen, jakina. Aritz Gorrotxategi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mutikoa bere oin potzolotik arantza bat ateratzeko ahalegin-keinu amaigabean ari zen; aurpegi biribilean, **egiantzekotasun** handiz nabari zitzaion minaren ankerra. Mirentxu Larrañaga

Baina bera, hauxe zen **egiantzekotasun** handiz baiezta zezakeen egitate bakarra, ez zegoen hilik oraindik. Aritz Gorrotxategi

Akusatuaren emaztearen arabera ere mutikoaren hitzak «erabateko **egiantzekotasunekoak**» dira, eta ez dauka «erresuminduta egoteko edo mendekua nahi izateko» motiborik Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ilusiorik ez da gertatuko, ordea, **egiantzekotasun**-efekturik eragiten ez badu. Josu Zabaleta

Horrek, noski, nabarmen handitzen du **egiantzekotasun**-sentipena eta identifikaziorako aukera, karikatura anbiguoraino ia-ia. Berria - Kultura

egiatasun 1 *iz* egia izateko nolakotasuna.

Dogma bat estatu zibilean gizonentzako baliagarri edo kaltegarri egiten duena ez dela dogma horren **egiatasuna** edo faltsutasuna, baizik eta hartaz egiten den erabilera edo gehiegikeria. Iñaki Iñurrieta

Galdu ditudan senide eta adiskide askoren oroitzapenak baino **egiatasun** eta izatasun gehiago du oinetako-garbitzailearen begiradak nire oroitzapenen ganbaran. Anjel Lertxundi

Osaba Juan begira gelditu zitzaion une batez, izen haren **egiatasuna** zalantzan jarriz bezala. Bernardo Atxaga

Iturri anonimoen erabilera murriztu; informazioaren **egiatasuna** baieztatu informazio iturriekin argitara atera aurretik. Iñigo Aranbarri

Ez duzu bada nire gutunean zureak eskas duen hura baizik kausituko, **egiatasuna** eta bakuntasuna. Jon Muñoz

Zerbait gezurra izanik ere behin eta berriz baieztatzen baldin bada gezurraren **egiatasuna**, azkenean gezurra egia bihurtzen dela betiko erabilian. Pello Salaburu

Gogamenak errealitate independentea errepresentatzen du eta, hortaz, errepresentazioen **egiatasunari** buruzko auzia sortzea zilegi da. Askoren artean

Harremanaren **egiatasunean** datza bikote baten egonkortasuna eta zoriona. Ramon Saizarbitoria

Hari lotutako nozio semantiko garrantzizkoenak -**egiatasunarena** edo esanahitasunarena- zeharka aztertzen ziren, teoriaren ereduak finkatu eta gero, sistema formal batentzat interpretazioa emanez. Askoren artean

Eukaristia **egiatasunez** (edo autentikoki) ospatzeko. Herria

2 (izenlagunekin)

Ez hain zuzen **egiatasun** atsegina, fidantzia eztia, adiskidantza sentikorra balioesten ez ditudalako... Jon Muñoz

Substantzia edo esentzia aldaezin bakarra dago eta hau Jaungoikoa da, zeinari **egiatasun** gorenaz dagokion izatea, eta hortik dator esentzia hitza. Imanol Unzurrunzaga

Durero handiak, animaliak ere **egiatasun** osoz taxutzen zituenak. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Teknikoei **egiatasun** presuntzioa aitortuko zaie, laneko ikuskatzaileen gisara. Berria - Ekonomia

Uste dut, euskal prentsan, oro har, behar hori,alegia, **egiatasun** baldintzak bermatzeari eskainitako ahalegina, euskaldunak harrotzeko moduko zio dela. Berria - Euskal Herria

Ustea sortzeko prozesua oso fidagarria bada, orduan ustearen **egiatasun**-maila ere oso fidagarria izango da. Askoren artean

---

egiati 1 *izond* egiaz mintzo dena; egiarekin bat datorrena. ik**egiazale**.

Zuk gaitzesten dituzu, Jaungoiko **egiati**, zuk argudioak ematen eta konbentzitzen. Imanol Unzurrunzaga

Zu gizon zintzoa zara, gupidatsua, **egiatia**, eta Jainkoaren legea betiere begiratu izan duzuna. Patxi Zubizarreta

Atsegin dut Chowder emakume gotor eta **egiati** hau. Oskar Arana

Ez naiz krudela, soilik **egiatia**. Bernardo Atxaga

Saiatua nintzen, **egiatia** eta eskuzabala. Josu Zabaleta

Lamelak bi taldetan banatzen zituen gehienetan gizonak: alde batetik jende **egiatia**, zintzoa, barren onekoa, bihotz onekoa; bestetik jende doilor eta harroa. Josu Zabaleta

Erabateko lasaitasuna zerion, benetako lasaitasun ederra, bihotz **egiati** batek berezko duen harmonia sendoa. Matías Múgica

Horretarako baina, gobernadore jauna, [...] galdetzaileak berriz- erdi bi, gezurti eta **egiati**, egin beharko litzateke gizona. Patxi Ezkiaga

Ba, hara, beren gisa erabaki dutela, hizketan oso astoak direlako eta jota abesten dutelako, berak direla pertsona **egiati** bakarrak, leial bakarrak. Koro Navarro

Gorritu egin da, eta horren konplimendu **egiatiak** ia atera dizkit koloreak neuri ere. Josu Zabaleta

Kontzientzia garbi eta **egiatiaren** bidez. Askoren artean

Hainbat era desberdinez elkar maite duten arren bada beti zerbait beren arteko harreman **egiati**, lasai eta bozkariotsua oztopatzen duena. Markos Zapiain

Dena den, Zalduaren ereduak, hau da, adiskideen arteko kritika trukatze **egiatiak**, baditu bere arriskuak: besteak beste, ostikolariaren mintzamoldea. Markos Zapiain

Eta guri, bere irakurleoi, dagokigu kasik erabat **egiati** den diskurtso postumo honen hutsuneak betetzea. Berria - Kultura

Borroka latza, sakona, **egiatia** eta bururainokoa. Berria - Kultura

Nire oinaze **egiatiena**, lehorrena. Monika Etxebarria

Egiati izan nahi dut zurekin. Oskar Arana

2 (adizlagun gisa)

Travis gai izan da dramaren mila aurpegiak **egiati** islatzeko, esloganen sindromean zein alderdikerian erori gabe; egurra denei emanez. Berria - Kultura

---

egiatxo *iz* egia txikia.

Gutxiago direnen artean ere bada entimemarik, txikiak ere maiteago baitu bere **egiatxoa**, egia berdaderoa baino. Joxerra Garzia

Eztabaidaren helburua iritzi kontrajarrien talkatik egia bakarra ateratzea izango da, beharbada, teorian, baina, praktikan, nork bere **egiatxoaz** gainerakoen **egiatxoak** garaitzea da. Joxerra Garzia

Errealitatea, ordea, nekez izan ohi da alde bakarreko, eta egia, zerbait izatekotan, askoren **egiatxoen** bilduma baino ez daiteke izan. Joxerra Garzia

---

egiazale *(orobat **egizale**)* 1 *izond* egiaren zalea dena.

Lekuko **egiazaleak** gezurrik ez, lekuko faltsuak gezurra barra-barra. Elizen arteko biblia

Hau guztia zaldun bertutetsu eta **egiazale** batek ikusi zuen, Greccioko Joan jaunak. Askoren artean

Lege zaharreko euskaldun **egiazale** prestua. Iñaki Iñurrieta

Zeu **egiazalea**, sinplea eta zintzoa zara. Xabier Paya

Hastapenetik **egiazalea** izan naiz zurekin, eta baztertu egin ditut gezurra eta amarrukeria. Patxi Zubizarreta

Egiazaleak zuzentasunez du aitortzen, lekuko faltsuak gezurrez. Elizen arteko biblia

Egiazaleak betiko irauten du, gezurtiak begien hertsi-ireki bat. Elizen arteko biblia

Otamendiren begiradak, sentibera bada ere, ez du deus gordetzen, **egiazalea** da, ausarta, ez du atzera egiten. batez ere, **egiazaleak** ziren, eta zoriontasunaren bila dabilen gizakiaren jarduera moralaren adierazpide izan ziren. Markos Zapiain

Galtzekorik ezer ez edukitzeak **egiazaleago** egiten du gizona. Berria - Kultura

2 (adizlagun gisa)

Rollebonek ez zuen inondik ere **egiazale** jokatzen ilobarekin, hartaz baliatu nahi zuen. Monika Etxebarria

---

egiazaletasun 1 *iz* egiazale denaren nolakotasuna.

Egia da emakumeek eta bai -justuak izateko- gizonek ere estimatzen dutela **egiazaletasuna**, baina ez zaie horratik askorik gustatzen gezurti eta zital baten

egiazaletasuna. Matías Múgica

Bihotzean dudana mihian legarrik gabe adieraziko dizut, eta ene **egiazaletasunak** ez zaitzala ni gorrotatzera eraman. Patxi Zubizarreta

Gero egia bilatzea espiritu bat bilakatzen da, **egiazaletasuna** obligazio etikoa (deontologia) eta komunitate zientifikoaren harremanetako zutabe bihurtzen da... Joxe Azurmendi

Hizketakidearekiko konfiantza eta **egiazaletasuna** beti zirela erabatekoak. Joxemari Iturralde

Freuden seme-alabetako bat berehala nabarmendu zen bere **egiazaletasunagatik**. Markos Zapiain

2 (izenondoekin)

Montsek hasieratik beretik jokatu zuen **egiazaletasun** handiarekin, eta nik eskertu egin nion jarrera hura. Joan Mari Irigoien

Gaitzespenaren doktrina Kalbinek irakatsi zuen, zeinari ematen zion poza nolabait ilundu baitzion bere konbikzioaren **egiazaletasun** ilunak. Xabier Olarra

Eromen horretarainoxe eraman dezake **egiazaletasun** koherenteak. Iñaki Segurola

3 (hitz elkartuetan)

Baina ez nian nahi **egiazaletasun**-distira bitxi haiek, nahiz eta apur bat kezkagarriak izan, nire zoriona lausotzerik. Xabier Olarra

---

egiazki *adlag* egiaz, benetan; dudarik gabe.

Zeren eta izaki izpirituzkoak eta gorpuzgabeak ez baitituzte gorputzeko begiek ikusten ahal, **egiazki** diren bezala eta horrengatik dira itxuraz irudikatzen. Piarres Xarriton

Ea bera zen **egiazki** Auschwitzeko Müller hura, eta ea gogoratzen zituen "laboratorioko hiru gizonak". Juan Garzia

Ez diote gerla deitzen, bainan **egiazki** gerla da Palestindarren eta Israeldarren artean. Herria

Jainko izana gatik, nahi izan du **egiazki** gizon egin, **egiazki** bere gain hartu gizonaren bizia, bere ahulezia eta nahigabe guziekin. Herria

Eta orduan burutik zer pasatu zitzaidan, ez dakit, **egiazki** ez dakit! Janbattitt Dirassar

Han bizia **egiazki** zer den ikasiko din hire alaba moxkote nazkagarri horrek. Itxaro Borda

Bigarrenekorik, erraten da eta frogatzen aitzinsolas honetan jatorrizko bekatua, **egiazki** bekatua dela, eta ez ohitura, ez eta bakarrik bekatuaren gaztigua ere. Piarres Xarriton

Egiazki denbora luze doa. Menane Oxandabaratz

Egiazki, bizkonde, jasangaitza zara. Jon Muñoz

Beraz, [...] gizaki libreak bakarrik dira, **egiazki**, eskerdun elkarrekiko. Piarres Xarriton

Akidurak hartu nau ondarrean eta ez dut entzuten apezak errana, ez eta ikusten, **egiazki**, harek erakutsia. Piarres Aintziart

Dena jestu, elestaria ere, ez dakit batere halakoa zen **egiazki** Probentzako laboraria. Herria

Gaur egun, ordea, datu hori, **egiazki**, gripe soil bat da burtsarentzat. Berria - Ekonomia

Nahi diat etxaldea, **egiazki**, hire gain izan dadin! Daniel Landart

Ohiturek dute osatzen **egiazki** nazio batasuna. Piarres Xarriton

Baina ez gizon **egiazki** ezjakin horiek egin duten bezala. Xabier Kintana

Azken batean, **egiazki** modelo-lanetan ziharduelakoan nago. Joxe Austin Arrieta

Ez nintzan ametsetarik ari, **egiazki** harekin nintzan. Michel Oronoz

Hiria jabez **egiazki** aldatua zela segurtatu zuen lehenik. Aingeru Epaltza

Baina ez zekien **egiazki** hori zenentz funtsezko arrazoia edo beste bat. Elena Touyarou

Baina **egiazki** gertatutako izugarrikeriaren gainetik, zeure huskeria horrexen axaleko mina da gailentzen zaizuna. Hasier Etxeberria

Gorputzaren lasaitasun eskasak ez dit izpiritua fleitean uzten eta **egiazki** so egiteko arta pizten. Piarres Aintziart

Beste batzuk, ordea, diote ahalmen horiek direla **egiazki** arimaren substantzia.Aski ongi ezagutzen zuen; munduan gizon hura doi bat ezagutzen zuen pertsona bakarra zen, **egiazki**. Piarres Xarriton

Aski ongi ezagutzen zuen; munduan gizon hura doi bat ezagutzen zuen pertsona bakarra zen, **egiazki**. Elena Touyarou

Urrutiko andre bat zen, **egiazki**. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ala egiazki (3); **bai egiazki** (5); **baina egiazki** (10); **bainan egiazki** (4); **baita egiazki** (4); **bat egiazki** (4); **da egiazki** (12); **dakit egiazki** (4); **den egiazki** (5); **direla egiazki** (5); **du egiazki** (6); **dute egiazki** (3); **egiazki barne** (3); **egiazki bat** (3); **egiazki bi** (3); **egiazki egin** (4); **egiazki eta** (11); **egiazki eta benetan** (3); **egiazki ez** (11); **egiazki ez dakit** (3); **egiazki hala** (4); **egiazki hitz** (3); **egiazki maite** (4); **egiazki mintzo** (3); **egiazki nahi** (3); **egiazki nola** (3); **egiazki zer** (7); **egiazki zer den** (6); **eta egiazki** (22); **ez dakit egiazki** (4); **gauzak egiazki** (3); **hori egiazki** (5); **zait egiazki** (4); **zen egiazki** (14); **zer den egiazki** (3); **zirela egiazki** (3); **zuen egiazki** (3)

---

egiazko *(orobat **egitazko** g.er.)* **1** *izlag* egiarekin bat datorrena, egiaren araberakoa dena, faltsoa edo itxura hutsa ez dena.

Idoloak eta **egiazko** Jainkoa. Elizen arteko biblia

Baina **egiazko** espekulazioan jardun gura duenak ikasketak egin beharko ditu, azaldu dugun guztiaren egiazkotasun ageri-agerikoa gerta dakion. Xabier Kintana

Laborantza Ganbara berezi bat berriki sortua, erdaraz ez duena deitura hori hartu, ez baita alabainan **egiazko** laborantza ganbara, ez delakotz frantses legearen arabera eraikia. Herria

Egiazko errealitatean kanpoko zein barruko organo guztien egoera, berbera da. Xabier Kintana

Jakinduria eta zientziaren arteko **egiazko** bereizketa honetan. Imanol Unzurrunzaga

Borrokaren balioari **egiazko** dimentsioa ematea, inertzietan eta etsipenean erori gabe. Berria - Ekonomia

Zure hau da nire bizitzan egin didaten **egiazko** ezkontza-eskari bakarra. Antton Olano

Iduritzen zait denborari hedapen zabal bat eman diodala, sendimenduek eta ideiek eratzen baitute **egiazko** denbora. Piarres Aintziart

Informazio hura ukatzeko hasi genuen ikerketa, baina azkenerako jabetu ginen **egiazko** informazioa zela. Berria - Gaiak

Bidean jardutea dela bidearen **egiazko** helburua, saiatzea, eta ez irabazle edo galtzaile ateratzea. Patxi Ezkiaga

Bestela aldia eta aldaera litzateke eta ez **egiazko** betikotasunik, ez **egiazko** hilezkortasunik. Imanol Unzurrunzaga

Ez baita sarri gertatzen norbaitek literatura fantastikoari **egiazko** deitzea. Bernardo Atxaga

Gatazkaren konponbiderako **egiazko** aukera dago. Berria - Kultura

Frantziako Antzerkiko **egiazko** turko bat. Josu Zabaleta

Paper gofratuak, inprimatuak, oihalezko **egiazko** ezpain-zapien moduan vichy apaingarri gorri eta xuriz hornituriko paperak. Joxan Elosegi

Geure baitatik erabat ateratzera eta naturaren argi zurbilak bertan behera uztera, **egiazko** eta esentziazko argian urtzera. Joan Mari Lekuona

Baina zuri, maitea, itxurazkoa agian gehiago gustatzen zaizu **egiazkoa** baino. Josu Zabaleta

Egiazko eta gezurrezko konfiantza. Elizen arteko biblia

Egiazko edo gezurrezko adiskideei. Josu Zabaleta

Jesusen **egiazko** familia.

Nola erakutsi zion San Frantziskok anai Leoni zer den **egiazko** poz betea Espirituko **egiazko** poza. Askoren artean

Egiazko gure giza gorputz argala. Josu Zabaleta

Hori da **egiazko** zuen kultua. Elizen arteko biblia

Jainkoaren Eliza, **egiazko** bakarra. Jon Alonso

2 (dagokion izenaren eskuinean)

Markosek esaten zuen igeltsero **egiazko** bat beharrezkoa izango zela. Jon Alonso

Beren iraganeko garaipen **egiazko** edo alegiazkoetara jo zuten. Bernardo Atxaga

Izan ere, halako axioma **egiazko** eta dudagabe batzuk bereganatu ondoan. Xabier Kintana

Izpirituak bere burua kontenplatzen du, nahitaez, ideia egoki edo **egiazko** bati pentsatzen duenean. Piarres Xarriton

Noiz arte, Jaun santu eta **egiazko** horrek, ez diguzu justizia egin behar, gure hilketa lurrean bizi direnen lepotik mendekatu gabe utziz? Elizen arteko biblia

On **egiazko**, oso, goren eta mugagabe. Imanol Unzurrunzaga

Hortik datorkigu gogora zerbait miresgarri eta aldi berean **egiazko**: [...]. Imanol Unzurrunzaga

Ez baita sarri gertatzen norbaitek literatura fantastikoari **egiazko** deitzea. Bernardo Atxaga

Konbentzioa da kolorea, konbentzioa da eztia eta konbentzioa garratza; izan ere, atomoak eta hutsa dira benetan zinezko eta **egiazko**. Joan Mari Irigoien

Zaldizkoari "Leial" eta **"Egiazko"** deritza, justiziaz epaitzen eta borrokatzen baitu. Elizen arteko biblia

Gainerakoan, senideok, hartzazue aintzat **egiazko**, gizabidetsu, zuzen, garbi, maitagarri eta goresgarri, bertutetsu eta onargarri den guztia. Elizen arteko biblia

Dena isil-isilik dago, ezer ez da **egiazkoa**. Mirentxu Larrañaga

Egiazkoa den oro egiaren eraginez da **egiazko**. Imanol Unzurrunzaga

Oro har **egiazko** zorigaitza edo miseria da gaitz **egiazkoa** jasatea. Piarres Xarriton

Bedeinka dezagun Jainko Jaun bizi eta **egiazkoa**. Askoren artean

Nire bizitza guztia agerian jarri nahi dizut, **egiazkoa**, ezagutu zintudan egunean bertan hasitakoa. Eduardo Matauko

Aingeruak esan zidan: **"Egiazkoak** eta fidagarriak dira hitzok". Elizen arteko biblia

Ezagutza faltsua saihestu beharko duten esakune ezeztaileak oso **egiazkoak** dira. Ibon Uribarri

Pobretasun santuan eta apaltasun **egiazkoan** biziz. Askoren artean

Saia gaitezen irudikatzen gure unibertsoaren antzeko beste unibertso paralelo bat, ikusezina baina **egiazkoa**, Babelgo Liburutegia deituko diogu. Anjel Lertxundi

Literatura fantastikoa, Borgesek berak idatzi zuenez, errealismoaren itxurakeriak baino zaharragoa eta **egiazkoagoa** dela. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arteko egiazko (6); **baina egiazko** (26); **bainan egiazko** (6); **baita egiazko** (6); **baten egiazko** (8); **bere egiazko** (44); **beren egiazko** (10); **da egiazko** (60); **dela egiazko** (8); **den egiazko** (16); **dira egiazko** (8); **direla egiazko** (5); **du egiazko** (12); **duen egiazko** (9); **edo egiazko** (9)

egiazko aita (7); **egiazko altxor** (11); **egiazko altxor bat** (9); **egiazko ama** (5); **egiazko amodioa** (5); **egiazko arazoa** (5); **egiazko argia** (8); **egiazko argiak** (5); **egiazko arrazoia** (13); **egiazko arrazoiak** (5); **egiazko arrazoitik** (6); **egiazko bake** (5); **egiazko bakerik** (7); **egiazko bat** (13); **egiazko baten** (7); **egiazko behar** (11); **egiazko bidea** (5); **egiazko bizia** (7); **egiazko bizitza** (5); **egiazko demokrazia** (5); **egiazko edo** (5); **egiazko egia** (5); **egiazko erlijioa** (5); **egiazko esanahia** (6); **egiazko esentzia** (6); **egiazko eta** (42); **egiazko ezagutza** (9); **egiazko ezagutzatik** (7); **egiazko ezkerra** (5); **egiazko gaitza** (5); **egiazko gizon** (5); **egiazko gure** (6); **egiazko hizkuntza** (10); **egiazko hizkuntza politika** (8); **egiazko izaera** (22); **egiazko izatea** (5); **egiazko izena** (9); **egiazko jainko** (27); **egiazko jainkoa** (13); **egiazko jaungoiko** (5); **egiazko lan** (6); **egiazko maitasuna** (10); **egiazko maitasunaren** (5); **egiazko seme** (5)

ere egiazko (14); **eta egiazko** (116); **eta gaizkiaren egiazko** (8); **ez da egiazko** (11); **ez du egiazko** (6); **ez egiazko** (13); **gaizkiaren egiazko** (8); **gaizkiaren egiazko ezagutzatik** (5); **gauzen egiazko** (6); **gure egiazko** (9); **haien egiazko** (6); **haren egiazko** (18); **hau egiazko** (10); **hor egiazko** (6); **hori da egiazko** (9); **hori egiazko** (9); **horren egiazko** (9); **jainkoaren egiazko** (10); **kristoren egiazko** (7); **nire egiazko** (9); **zela egiazko** (6); **zen egiazko** (13); **zuen egiazko** (11)

baina egiazkoa (8); **baina egiazkoak** (5); **baino egiazkoagoa** (5); **bat egiazkoa** (14); **bat egiazkoa dela** (5); **bezain egiazkoa** (5); **da egiazkoa** (11); **dela egiazkoa** (5); **dira egiazkoak** (13); **egiazkoa bada** (13); **egiazkoa baizik** (5); **egiazkoa da** (44); **egiazkoa da baldin** (7); **egiazkoa dela** (25); **egiazkoa den** (22); **egiazkoa edo** (8); **egiazkoa eta** (34); **egiazkoa ez** (17); **egiazkoa izan** (16); **egiazkoa izan behar** (6); **egiazkoa izango** (14); **egiazkoa izango da** (7); **egiazkoa zela** (17); **egiazkoa zen** (12); **egiazkoak dira** (20); **egiazkoak direla** (17); **egiazkoak diren** (9); **egiazkoak edo** (9); **egiazkoak eta** (17); **egiazkoak ez** (6); **egiazkoak izan** (11); **egiazkoak ziren** (9); **egiazkorik ez** (5); **egiazkotzat jo** (8); **ere egiazkoa** (7); **eta egiazkoa** (40); **eta egiazkoagoa** (6); **eta egiazkoak** (15); **ez da egiazkoa** (7); **ez dira egiazkoak** (6); **hain egiazkoa** (7); **hau egiazkoa** (5); **hori egiazkoa** (7); **perpaus bat egiazkoa** (6)

---

egiazkotasun 1 *iz* egiazkoa denaren nolakotasuna.

Ondoko istorioen **egiazkotasuna** ez da serioski gezurtatu. Xabier Olarra

Zer irizpideren arabera eztabaida daiteke proposizio baten **egiazkotasunaz** edo faltsutasunaz. Xabier Arregi

Nire sentimenduen **egiazkotasunaz** sekula dudarik egin ez dezazun. Jon Muñoz

Azken baiespen horren **egiazkotasuna** bide ezberdinetatik frogatzen saiatu dira. Xabier Kintana

Jarraian esan zutenetik funtsean atxiki nuena zen "albiste hitsaren **egiazkotasunaz**, tamalez, zalantzarik ezin izan" zezaketela. Urtzi Urrutikoetxea

Berri horien **egiazkotasuna** zalantzan jarri zuen, ez baitute albisteen jatorria ezagutzen. Berria - Ekonomia

2 (izenondoekin)

Egileak maisuki erabili ditu elkarrizketen naturaltasun harrigarria eta komediaren mekanismo ezagunak **egiazkotasun** handiko melodrama hau eraikitzeko. Berria - Kultura

Segidan, nola bainekusan ezen gizon hura **egiazkotasun** handiz ari zitzaidala, egiazki solastatzerat deliberatu nintzen nihaur ere. Joan Mari Irigoien

Artxibo alfabetiko batera jasotzen ziren gero **egiazkotasun** finkagaitzeko berriok guztiok. Juan Garzia

Nahiago dut **egiazkotasun** zintzoz laburbildu Ireneok esan zizkidan gauza ugariak. Juan Garzia

Egiazkotasuna, izugarria. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Dos Passosek halako **egiazkotasun**-kutsu batez hornitzen ditu bere kontakizunak, alegiazko bere pertsonaiak indartu nahirik. Lopez de Arana

Itxitako giltzarrapo horretan klik eginez gero, **egiazkotasun** agiriaren datuak irakurri ahal zitezkeen. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiazkotasuna frogatzeko (3); **egiazkotasuna zalantzan** (3); **egiazkotasunari buruz** (4); **horien egiazkotasuna** (3)

---

egiaztabide *iz* egiaztatzeko bidea.

Marcel Martinen kasua *Semiplena probatio* bat zen, auzi eskea **egiaztabide** frankorekin aurkeztu baitzuten; besteak beste, aipaturiko biak: ustezko alabak zuen antza eta, batez ere, frogaturik zegoela hura sortutako garaian amarekin harremanak izan zituela. Ramon Saizarbitoria

---

egiaztaezin *izond* ezin egiaztatuzkoa.

Irakeko Guardia Nazionalak eta Poliziak Najafeko hilerria kontrolpean hartu dituztela iragarri badute ere, albistea **egiaztaezina** zen atzo behintzat, hedabideek ez baitzuten azken hiru egunotan borroka gogorren gune izan den leku honetatik hurbiltzeko ahalmenik. Berria - Mundua

---

egiaztagarri *izond* egiazta daitekeena, egiaztatzeko modukoa.

Nola ez jabetu ezen gure elikagai ziren kimika eta fisika haiek, bestela ere janari premiazkoak izateaz gainera, faxismoaren aurkako antidotoa zirela, berak eta biok bilatzen genuenez, zeren argi eta zehatzak baitziren, pausoz pauso **egiaztagarriak**. Juan Garzia

IRAren buruzagitzak erabaki zuen, era berean, arma guztiak modu **egiaztagarrian** erabiltezin utziz amaituko zuela prozesua. Berria - Mundua

Eragin **egiaztagarrien** gainetik, telebistak ereduak ezartzen ditu: maitasuna, ospea, zoriona ulertzeko eta bizitzeko eredu jakin batzuk. Joxerra Garzia

Termino batek esanahia izan dezan eta termino hori zientzian erabilgarria izan dadin intersubjektiboki **egiaztagarria** izan behar du positibisten ustez. Askoren artean

Eta orain, mesedez, historiara itzuliko gara, gertaera sendo, sinesgarri eta **egiaztagarrietara**! Iñaki Mendiguren

Lege horiek halabeharrezkoak direnez, giza adimenak **egiaztagarriak** dira. Iñaki Mendiguren

Egiaztagarria den informazio zehatza. Berria - Mundua

Begiak erretinako proiekzioak ia beti ongi interpretatzen baldin baditu, perspektibak eskaintzen dituen garrantzi handiko informazioei haiekin zerikusirik ez duen bestelako hainbat informazio, haien **egiaztagarri** edo gezurtagarri izan daitekeena, gehitzen dielako gertatzen da horrela. Josu Zabaleta

Adibideak aurki ditzakegu baieztapen horren **egiaztagarri**. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
armak modu egiaztagarrian (3); **modu egiaztagarrian** (6)

---

egiaztagiri *iz* zerbait egiaztatzen duen agiria.

Ez al dugu lau adituren **egiaztagiria**? Lopez de Arana

HABEk EGA baino maila apalagoko **egiaztagiri** bi lortzeko aukera emango die euskara ikasleei. Berria - Euskal Herria

Aztertu beharko da ikasketak euskaraz amaitzen dituenari **egiaztagiria** zuzenean emango zaion edo aldez aurretik azterketa egingo zaion. Berria - Euskal Herria

Sartu da berehala koinatarekin Orreagako Kolegialean, **egiaztagirian** zigilua ezararaztzeko. Piarres Aintziart

Ez diat eragozpenik jarriko, jabetza-**egiaztagiria** ere aurkeztuko zieat, probintziako polizi kapitainak sinaturik. Jose Morales

Gizarte Segurantzan enpresa gisa izena eman duten **egiaztagiria**, eta Ogasunarekin zorrik ez dutela egiaztatzen duen papera. Berria - Harian

18. promozioko 164 ertzainek lanean jarduteko **egiaztagiriak** jaso zituzten. Berria - Euskal Herria

---

egiaztapen **1** *iz* egiaztatzea.

Itxuragabekoak izan gabe **egiaztapenik** ez duten hipotesiak. Ibon Uribarri

Kontaduriaren **egiaztapenari** ekin zioten. Patxi Zubizarreta

Ez nuke nahi inork ulertzerik **egiaztapen** horretatik atera beharreko ikaskizuna etsipena edo nihilismoa denik. Juan Garzia

Ez dudala hutsegiterik izan nire **egiaztapenetan**. Josu Zabaleta

Zurrumurruen **egiaztapena** zen hau. Txillardegi

Iritsi naiz, bada, egunkari bat idazteko ideia honen iturburuan dagoen **egiaztapenera**: ez dut lagunik. Josu Zabaleta

SCHtik diote ez dutela **egiaztapenik**. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zuek kritikatzen duzuen hau da orain arteko baieztapenen zuzentasunaren **egiaztapen** onena. Ibon Uribarri

Ahotsa gardena zuen, eta **egiaztapen** sotil horrek bihotza gainezka jarri zidan. Anjel Lertxundi

Egiaztapen nihilista horiek ez dakarte deus berririk. Juan Garzia

Egiaztapen kritikoak eta esperimentuek txanda hartzen dutenean, orduan banantzen da zientzia artetik, eta beste bide bat hartzen. Juan Garzia

Presentzia-eremu honetan ezarritako harremanak **egiaztapen** esperimentalaren motakoak izan daitezke, baliozkotze logikoaren motakoak, errepikapen huts eta soilaren motakoak, [...]. Xabier Arregi

Abiaburuko **egiaztapen** horregatik hartu da, beraz, liburu honetan hartu den jarrera. Josu Zabaleta

Gainera, lagin kritikoak gorde beharko dira, beranduagoko **egiaztapenetarako**. Berria - Gaiak

Halako gertakizunekin loturiko hipotesi gehienek ez dute modurik eskaintzen, ez berreraikuntzarako, ez esperimentu bidezko **egiaztapenerako**. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Antzeko gauzak gertatzen dira, nonbait, ametsetan, zeren ezin sinetsizko fantasmagorietan barneratzen baikara eta ez baikara batere harritzen, **egiaztapen** aparatua, kontrolaren zentzua, lotan dugulako; eta irudimen ahalmena, aldiz, iratzarririk eta lanean baita ari. Josu Zabaleta

Jakitearen gainean funtzio menderatzailea betetzen badu (eredu, kritika edo **egiaztapen** funtzioa), orduan esango da eraketa diskurtsiboak epistemologizazio atalasea iragan duela. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egiaztapen bat (3); **egiaztapen horrek** (4); **eta egiaztapen** (4)

---

egiaztarazi, egiaztaraz, egiaztaratzen du *ad* egiaztaratzera behartu.

Gure gogoetaren mugimendu logikoak berak **egiaztarazi** digu organo hori ez dela tresna neutroa, datuak ahal den zehazkien transmititu besterik egiten ez duena, oso bestela baizik, garunaren eta munduaren arteko topagune aurreratuetako bat dela. Josu Zabaleta

---

egiaztatu, egiazta, egiaztatzen *(orobat **egiztatu** g.er. eta **egiaztu** g.er.)* **1** du *ad* zerbait egia edo egiazkoa dela, edo uste zen bezalakoa dela ikusi edo frogatu. ik **ziurtatu; baieztatu**.

Bai zuek, bai Benjaminek, zeuen begiz **egiazta** dezakezue ni neu naizela hitz egiten ari natzaizuena. Elizen arteko biblia

Gertatua **egiaztatu** ondoren, erregeak hesia ezarri zuen eta toki hura sakratutzat eman. Elizen arteko biblia

Datu haien benetakotasuna **egiaztatzen** ari zirela. Josu Landa

Nire uste okerrenak **egiaztatu** ziren orduan. Koro Navarro

Ukitu eta gero usaindu egin zuen eta susmoa **egiaztatu** zitzaion. Karlos Zabala

Patrikatik papertxoa atera eta azken aldiz **egiaztatu** zuen helbidea aurrean zeukan etxearekin: Madison Avenue 206. Iñaki Zabaleta

Ez naiz gogoratzen heriotza **egiaztatu** zuen guardiako sendagileaz. Joseba Urteaga

Zerbitzari automatikoak (produktuen kode-barra irakurri eta visa txartela **egiaztatutakoan**, irteteko langa irekiko dutenak, adibidez) biderkatuko dira jan-edariak kontsumitzen diren toki publikoetan. Edorta Agirre

Apezak ur sainduz zuloa benedikatu zuenean, buztin malguan barreiatu kaskezurraren hondakinen presentzia **egiaztatu** zuen. Itxaro Borda

Hortaz, gure zoritxarra desiratu beharko ote dugu lagunen maitasuna **egiaztatzeko**? Imanol Unzurrunzaga

Esperimentuek gezurtatzen dutena baztertzea eta **egiaztatzen** dutena onartzea, norberaren gustuen eta norberaren aurreiritzien aurka badoa ere. Juan Garzia

Teoria hauek oraindik **egiaztatu** edo gezurtatu ez direlarik, biek dituzte zeinek beren alde onak eta baliagarritasuna. Josu Zabaleta

Ekuazioa xuxen betetzen zen soluzio diluituetan; inor ez bide zen arduratu soluzio kontzentratuetan, likido polar puruetan eta azkenon arteko nahasteetan **egiaztatzen**. Juan Garzia

Erabat ukatu zuten aski dela intuizioa egia matematikoak **egiaztatzeko**, eta orobat ukatu zituzten zenbakizko frogak. Jon Muñoz

Urrundik edo arduragabeki begiratuz gero, zilarrezko sagar irudi luke, baina begiratzaile zoliak, arretaz so eginez gero, barnean daukana aurkitu eta urrezkoa dela **egiaztatzen** du. Xabier Kintana

Frantziskok izan zuen beste lankiderik ere bere idazkien eraketan, Erregelaz espresuki esaten den bezala, eta barne-kritikak **egiaztatzen** duenez. Askoren artean

Ez zegoen giltzaz itxita; beraz, sartu ahal izan zen, baita **egiaztatu** ere bertan ez zegoela inor. Joxemari Iturralde

Baina nik badakit harkaitzak direla, harriak, bolkanikoak seguru aski: bertagotik aztertu eta **egiaztatu** beharko litzateke puntu hau, nolanahi ere. Joxe Austin Arrieta

Jakaren patrika haztatu zuen, pentsioa bideratzeko paper guztiak gordeak zeramatzala **egiaztatu** nahian. Ramon Saizarbitoria

Aski nire susmo txarrak **egiaztatzeko**. Aingeru Epaltza

Auto iluna eta luzea iruditu zaio, baina ezin ziur jakin, laster lekutu baita eta ez du **egiaztatzeko** astirik izan. Pello Lizarralde

Ez zuen zikindu ote zen **egiaztatzeko** lanik hartu. Ramon Saizarbitoria

Espainiako poliziak ez du muga zeharkatuko giltza pare bat **egiaztatzeko** bakarrik. Rafa Egiguren

Egiaztatua eta berretsia dago XVIII. mendean beren kargutik egotzi zituztela bi alkate: gona kontuengatik bata, eta udalari iruzur egiteagatik bestea. Joan Mari Irigoien

2 (adizlagunekin)

Ongi **egiaztatuak** dira Jainkoaren promesak; berarengana jotzen dutenak babesten ditu. Elizen arteko biblia

Rulfo bisitatzeko aukera izan nuenean, Nazas 86ko bere apartamentuan, ondotxo **egiaztatu** zen nire susmoa. Juan Garzia

Ireki nuen bada gutunazala, eta nire susmo txar guztiak hantxe zeuden, krudelki **egiaztaturik**, gordinki haragiztaturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Frantziskok inoren bihotzeko ezkutukoak ezagutzen zituela askok eta askotan **egiaztatu** zuten gauza da. Askoren artean

Baina haren biografoek aise **egiazta** dezakete hori. Matías Mujika

Izan ere, zantzu nabarmenez eta beren esperientziaz sarritan **egiaztatua** zuten, beren bihotzeko ezkutukoak ez zitzaizkiola ezkutuak gertatzen aita txit santuari. Askoren artean

Alde batetik perpaus analitikoak genituzke, a priori egiazkotzat jo ditzakegunak, beharrezkoak; eta, bestetik, sintetikoak, a posteriori **egiaztatu** beharrekoak, kontingenteak. Askoren artean

3 (era burutua izenondo gisa)

Datu **egiaztatuek** ez zuten ezer esan nahi harentzat. Josu Zabaleta

Lukrezio ez da informazio **egiaztatuak** eta arrazoituak eman gabe geratuko. Xabier Amuriza

Klabe-hitzak: "beste guztiek ez bezala", urruti, diseinukoa, berariazkoak, jatorri **egiaztatua**, pribilegiatuentzat, kalitatea, saritzea, "aldea nabarmentzen da", sofistikatua, esklusibotasuna, etc. Edorta Agirre

Pisatzen eta zatitzen, froga **egiaztatuetan** oinarriturik neurtzen eta epaitzen, eta zergatikoei erantzuten ahal guztiz saiatzen den kimikari baten lana. Juan Garzia

Raimundo Silvak ezin dezake bere historiarekin segi, hau da, gurutzatu bakar batek ere ez zuela erregearekin traturik egin nahi izan dioen historiarekin, hortxe baitago Historia **Egiaztatua**. Jon Alonso

Errekurtso artifiziozko hori gizartean bene-benetakotzat hartzen diren balio moral ustez **egiaztatuen** euskarri da. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiazta daiteke (4); **egiazta daitekeen** (3); **egiazta dezakegu** (3)

aldiz egiaztatu (4); **askotan egiaztatu** (7); **askotan egiaztatu ahal** (4); **batek egiaztatu** (3); **begiz egiaztatu** (3); **benetakoa dela egiaztatu** (3); **berak egiaztatu** (4); **berehala egiaztatu** (3); **betikoa dela egiaztatu** (3); **bidez egiaztatu** (4); **da egiaztatu** (5); **daudela egiaztatu** (6); **dauden egiaztatu** (3); **dela egiaztatu** (20); **direla egiaztatu** (14); **direla egiaztatu zuten** (3); **dituela egiaztatu** (4); **duela egiaztatu** (5); **dute egiaztatu** (3); **dutela egiaztatu** (7)

egiaztatu ahal (65); **egiaztatu ahal izan** (56); **egiaztatu ahal izango** (3); **egiaztatu arte** (12); **egiaztatu aurretik** (4); **egiaztatu baitzuen** (4); **egiaztatu behar** (22); **egiaztatu behar da** (3); **egiaztatu behar dela** (3); **egiaztatu beharko** (13); **egiaztatu beharko dute** (4); **egiaztatu beharrik** (3); **egiaztatu besterik** (4); **egiaztatu da** (4); **egiaztatu dira** (3); **egiaztatu du** (21); **egiaztatu duenez** (4); **egiaztatu dugu** (6); **egiaztatu dut** (5); **egiaztatu dute** (27); **egiaztatu duten** (3); **egiaztatu dutenez** (4); **egiaztatu edo** (4); **egiaztatu edo gezurtatu** (3); **egiaztatu egin** (12); **egiaztatu egin behar** (3); **egiaztatu ere** (4); **egiaztatu eta** (22); **egiaztatu eta gero** (4); **egiaztatu ez** (3); **egiaztatu gabe** (11); **egiaztatu gabeko** (4); **egiaztatu nahi** (18); **egiaztatu nahi du** (3); **egiaztatu nahi izan** (4); **egiaztatu nahian** (3); **egiaztatu nahirik** (3); **egiaztatu nuen** (15); **egiaztatu ondoan** (3); **egiaztatu ondoren** (29); **egiaztatu ostean** (6); **egiaztatu zen** (10); **egiaztatu zidan** (4); **egiaztatu zuen** (52); **egiaztatu zuenean** (3); **egiaztatu zuenez** (4); **egiaztatu zuten** (24)

ere egiaztatu (6); **eta egiaztatu** (20); **eta egiaztatu nahi** (3); **etena egiaztatu** (9); **ez da egiaztatu** (3); **ez dute egiaztatu** (3); **ez zegoela egiaztatu** (4); **heriotza egiaztatu** (3); **hori egiaztatu** (3); **izan zela egiaztatu** (4); **su etena egiaztatu** (9); **susmoa egiaztatu** (4); **susmoak egiaztatu** (3); **zegoela egiaztatu** (24); **zegoela egiaztatu ondoren** (3); **zegoela egiaztatu zuen** (5); **zegoela egiaztatu zuten** (3); **zela egiaztatu** (20); **zela egiaztatu eta** (3); **zela egiaztatu ondoren** (3); **zela egiaztatu zuen** (3); **zela egiaztatu zuten** (4); **zen egiaztatu** (3); **zeudela egiaztatu** (4); **zirela egiaztatu** (9); **ziur egiaztatu** (3); **ziur egiaztatu zuen** (3); **zuela egiaztatu** (10); **zuen egiaztatu** (4); **zutela egiaztatu** (7); **zutela egiaztatu nuen** (3)

dela egiaztatuz (3); **dela egiaztatuz gero** (3); **egiaztatua dago** (3); **egiaztatuko da** (3); **egiaztatuta bere** (5); **egiaztatuta bere lanpostuari** (5); **egiaztatuz gero** (7); **etena egiaztatuta** (3); **hori egiaztatuko** (3); **ongi egiaztatua** (4); **su etena egiaztatuta** (3)

dagoela egiaztatzeko (7); **dela egiaztatzea** (4); **dela egiaztatzeko** (14); **den egiaztatzea** (3); **den egiaztatzeko** (3); **desarmea egiaztatzeko** (3); **direla egiaztatzeko** (5); **diren egiaztatzeko** (3); **ebaluatu eta egiaztatzeko** (3); **edo ez egiaztatzeko** (8); **egiaztatzea da** (3); **egiaztatzea dela** (3); **egiaztatzea eta** (4); **egiaztatzea ez** (3); **egiaztatzeko aukera** (4); **egiaztatzeko balio** (3); **egiaztatzeko denbora** (3); **egiaztatzeko derrigortasun** (4); **egiaztatzeko derrigortasun datak** (4); **egiaztatzeko edo** (3); **egiaztatzeko eskatu** (4); **egiaztatzeko eta** (6); **egiaztatzeko ez** (3); **egiaztatzeko garaia** (9); **egiaztatzeko garaia dela** (7); **egiaztatzeko unea** (4); **egiaztatzeko unea dela** (3); **egon zela egiaztatzeko** (5); **eskakizuna egiaztatzea** (4); **esperientzia egiaztatzea** (3); **eta egiaztatzeko** (7); **etena egiaztatzea** (5); **etena egiaztatzeko** (14); **etena egiaztatzeko garaia** (7); **ez egiaztatzeko** (8); **hitzak egiaztatzeko** (3); **hizkuntz eskakizuna egiaztatzea** (3); **hori egiaztatzeko** (15); **horiek egiaztatzeko** (3); **maila egiaztatzeko** (4); **ote zen egiaztatzeko** (4); **sinadurak egiaztatzeko** (6); **su etena egiaztatzea** (5); **su etena egiaztatzeko** (14); **zegoela egiaztatzeko** (3); **zela egiaztatzeko** (8); **zen egiaztatzeko** (5); **zuela egiaztatzeko** (4); **zuen egiaztatzeko** (4)

dela egiaztatzen (8); **dela egiaztatzen bada** (3); **direla egiaztatzen** (6); **duela egiaztatzen** (4); **egiaztatzen ahal** (4); **egiaztatzen ari** (8); **egiaztatzen bada** (12); **egiaztatzen badira** (4); **egiaztatzen da** (12); **egiaztatzen denean** (6); **egiaztatzen du** (22); **egiaztatzen duen** (14); **egiaztatzen dut** (3); **egiaztatzen dute** (11); **egiaztatzen duten** (8); **egiaztatzen zuen** (9); **egiaztatzen zuten** (3); **egiaztatzera joan** (3); **eta egiaztatzen** (4); **eta hori egiaztatzen** (3); **etena egiaztatzen** (6); **hori egiaztatzen** (10); **hori egiaztatzen duen** (4); **su etena egiaztatzen** (6); **zela egiaztatzen** (4); **zen egiaztatzen** (3); **zirela egiaztatzen** (4)

---

egiaztatzaile *izond* egiaztatzen duena.

Dokumentu **egiaztatzaileak** dira guretzat; entzuleak haiek sentitu eta bertan ikusi baditu, nire hitzek ez diote ezer irakasten; bere baitan daramatzan irudietan antzematen du egia; sentitu ez baditu, ordea, nork ez du ulertzen ikasi ez baina hitzei ematen diela fede? Imanol Unzurrunzaga

---

egiaztatze 1 *iz* zerbait egia edo egiazkoa dela, edo uste zen bezalakoa dela ikustea edo frogatzea.

Egiaztatze hori nik biziki behar nuen. Matías Múgica

Kantoirantz zuzendu zen, instintiboki esku batez praketan ezkutatuta zeukan pistola ukitzen zuen bitartean, nolabait han zegoela egiaztatzeko edo, nolabait **egiaztatze** horrek lasaitu ahal izango zuelakoan edo. Sonia Gonzalez

Kanpotikako **egiaztatze** guztiak behar nituen: Luteziarentzako soinekoak eta niretzako trajeak. Matías Múgica

Aitorpenen balioaren **egiaztatze** erabatekoa izan zen azterketaren emaitza, eta horren ondorioz egiaztatu zen St. Eustacheren errugabetasunarena ere. Koro Navarro

Eurek irekitzen dituzte argudiatze, esperientzia, **egiaztatze**, inferentzia ugariren sekuentziak. Xabier Arregi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Gastuen **egiaztatze** lan horretaz ari zarela uste dut. Joxan Elosegi

Bere objektu espezifikoak eta bere **egiaztatze** tresnak. Xabier Arregi

Horren helburua da **egiaztatze** eta koherentzia-arauak balioestea. Xabier Arregi

Fikziozko objektuen multzo bat izango da, ezaugarri arbitrarioak izango dituztenak (baita nolabaiteko iraupena eta koherentzia ere) eduki gabe esperimentu edo hautemate-**egiaztatze**-instantziarik. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egiaztatze prozesua (4); **egiaztatze prozesurako** (3); **egiaztatze sistema** (3); **eta egiaztatze** (4)

---

egiaztatzearren *adlag* egiztatzeko.

Hori zen haren teoria eta horregatik gastatzen zuen bere dirua, teoria hori egiazkoa zela **egiaztatzearren**. Joxemari Iturralde

---

egiaztu ik **egiaztatu**.

---

egibide ik **egiabide**.

---

egierdi *iz* erdi egia.

Zilegi zen pentsatzea polizia, bere burua handi egiteagatik, gezurretan nahiz **egierdietan** ari izan zitekeela emakumearekin, nirekin, antza, egiten zuen gisa berean Aingeru Epaltza

---

egigose *izond* egiaren gose dena.

Zein zorionekoa litzatekeen herriaren gogo **egigosea**, baldin eta tronuraino iristeko zoria balu! Juan Martin Elexpuru

---

egikari *(orobat **eginkari**) iz* egitatea.

Legeek eta lan eta ekonomia harremanek ez dute sekula immigrazioaren **egikari** soziala gaindituko. Berria - Harian

Halarik ere ez du sekulan agertu deus tzarkeriarik, ez bere **eginkarietan**, ez eta bere eleetan. Xipri Arbelbide

---

egikaritu, egikari(tu), egikaritzen du *ad* zertu, gauzatu, bete.

Hiritarren segurantzaren eta askatasunaren hain kontrako bihur daitekeen legea hiritarren aurrean **egikaritu** behar da. Iñaki Iñurrieta

Debekatu egiten da emakumeak gizonekiko berdintasunean parte-hartzea onartzen ez duten edo trabatzen duten kultur jarduerak antolatzea eta **egikaritzea** gune publikoetan. Berria - Harian

Osoko bilkurak orain arteko txostenei oniritzia emanez gero, Talde Sustatzailea bi proposamenak **egikaritzeko** lanean hasiko litzateke. Berria - Euskal Herria

Iñigo Lamarka EAEko arartekoak adierazi zuen ordenamendu juridikoak «ahalik eta permisiboen» izan behar duela oinarrizko eskubideak **egikaritzeko**. Berria - Euskal Herria

Dena den, egun, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan nahiko urria da isilpeko ehizari aurre egiteko araudia, Eusko Jaurlaritzak ez baitu ehiza arautzeko dagokion eskumena **egikaritu**. Berria - Euskal Herria

Ikusten da harentzat horiek ez zirela izango garai hartako profesional baten lanak izaten zituen arreta-arlo edo garapen-fase desberdinak besterik, hasi proiektua egitetik eta proiektu hori gauzatu eta **egikaritzeraino**, arkitekturako obra bat egin behar zen bakoitzean. Santiago Iruretagoiena

Materiak eta espirituak historia bat hasten dute, [...], hau da, sortzetik beren baitan daukaten programa (Ideia) **egikaritzen** dutela, urretxindorraren biografia bitxiena eta txorrotxio guztiak arrautza txiki batean habian programaturik zegoenaren **egikaritzea** diren moduan. Askoren artean

Estoikoek aberastasunak, giza ohoreak, oinazea, nahigabeak, plazerrak, alferreko gauzatzat zeuzkatelarik, gizakien zorionaren alde baizik ez zuten jarduten, gizarteko betebeharrak **egikaritzen**. Iñaki Iñurrieta

Ideala, ordea, adibide batean, h[au] d[a], agerpenean **egikaritu** nahi izatea egingaitza da, jakintsua eleberri batean errealizatzea ere egingaitza den bezala. Ibon Uribarri

Zer iritzi duzu GNU/Linuxen **egikaritzen** diren software pribatuko programez? Berria - Gaiak

---

egikaritza *iz* egikaritzea.

Oinarri-esakunean kategoriaz balia gaitezke, baina bere **egikaritzan** (berau agerpenei aplikatzean) kategoriaren ordez bere erabileraren gakoa den bere eskema hartuko dugu. Ibon Uribarri

---

egikaritzapen *iz* egikaritzea.

Humeren arazoaren **egikaritzapena** da bere zabalpen ahalbait handienean. hasi abstrakzio geometrikotik eta eraikuntza materialeraino iritsiz, eta tartean hartuz neurrien konkrezio aritmetikoa, neurri horiek irudikapen grafikora eramatea eta material eta eraikuntzako teknika egokiak erabiliz lortzen den eraikinaren **egikaritzapen**-prozesua. Ibon Uribarri

---

egikaritze *iz* zertzea, gauzatzea, betetzea.

Egungo eskubideen ukapen egoera gainditu nahi du, eskubide guztien aitortza eta **egikaritze** egoerara pasatzeko, eta bide horretan emakumeen eskubideek ere kontuan hartuak izan behar dute». Berria - Euskal Herria

---

egikera 1 *iz* egiteko era; itxura; estiloa.

Gauza horiek guztiak izadian bertan ikusi eta suma daitezke, baina berdin antzematen dira herri desberdinetako jendeen gorputzetan eta **egikeretan** ere. koreografia guztiz berezia izan zen hala sortze nola **egikeraren** aldetik. Santiago Iruretagoiena

Arrakasta ordea ez da beti izaten merezimenduaren frogagarri, eta sarri zaio atxikiagoa hautatu den gaiari, gaiaren **egikerari** baino, aurkezten dituen objetu multzoei, taxutuak izan diren erari baino. Jon Muñoz

Baina ez lanaren **egikerak**, ez begitartearen edertasun hilezkorrak, ezin izan ninduten hain bat-batean eta hain barruraino asaldatu. Koro Navarro

Beraz, jakin behar dugu zer den otoitza, bere mina, **egikera**, zergatik egin behar dugun otoitz eta zein den lekurik egokiena otoitzerako. Joan Mari Lekuona

Lightfoot/Leonen lehen koreografia guztiz berezia izan zen hala sortze nola **egikeraren** aldetik. Berria - Kultura

Gaineko ilarako harrien erdian beti beheko ilarakoen junturak etorriko direnez, askoz ere sendoago trabatuta geratuko baita lan osoaren **egikera**. Santiago Iruretagoiena

Gauza horiek guztiak izadian bertan ikusi eta suma daitezke, baina berdin antzematen dira herri desberdinetako jendeen gorputzetan eta **egikeretan** ere. Santiago Iruretagoiena

Ikusmen-sistema bere **"egikeraz"** dago ikusmenezko ertzak, zirrikituak, marrak, segmentuak ezagutzeko gai diren tresnez hornitua. Josu Zabaleta

Ixabel da hirugarrena eta oraingoz azkena, urtebete ere ez daukan panpina da bera, hau ere amaren **egikerakoa**. Hasier Etxeberria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Emanaldian zehar, baina, txandakatu egingo dira hiruren arteko paperak eta objektuekiko harremanak, eta horrek bereziki interesgarri bihurtuko du **egikera** perfektuko eta inpaktu handiko pieza borobil hau. Berria - Kultura

Trajea joskera ederrekoa zuen, aurpegia ere **egikera** tatxagabekoa, ahoa ere bai, hortzak ere bai. Matías Múgica

Disposizioa gauzak modu egokian jartzea da eta, kalitatearen bidez, konposizioan obraren **egikera** dotorea lortzea. Santiago Iruretagoiena

Aldi luze batean denboraldiko gonak, merkealdietako galtzak, modako jakak eta **egikera** egoki edo desegokiko jantziak izan genituen solas. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere egikeraz (3)

---

egile 1 *iz* adierazten dena, eskuarki liburu edo testu bat, egiten duen pertsona.

Egilea eta liburua gaitzetsiak izan ziren, agintari militarrek zigortu egin zuten Laclos eta Bretainiara bidali berehala. Jon Muñoz

Azterketetan boterearen zilegitasunari buruzko argudiorik hoberenak aurkeztu dituzten **egileak** Machiavelli, Hobbes, Locke, Kant, Rousseau, Hegel eta Weber izan dira, besteak beste. "25.000 sarrera ditu", zioen hitzaurrearen **egileak**. Askoren artean

Liburu honek, **egile** honen beraren guztiek bezala, badu gogoetarako eta gozamenerako beste makina bat zoko ezkutu eta harrigarri ere. Jon Alonso

Egileaz gain, Martxelo Otamendi Berriako zuzendariak egingo du aurkezpena. Berria - Euskal Herria

Beste **egile** batzuen hitzak, esaldiak, pasarteak... tartekatu ditugu han-hemenka, beste ezerk baino hobeto argituko dutelako gure jarduna. Iñaki Arranz

Eskuizkribuaren **egilea** aurkitzeko. Josu Zabaleta

Hau da, labur esanda, idazkiaren **egileak** duen helburua: Anaia txikiak ohartarazi eta aholkatu perfekzio-bideari ekin diezaioten. Askoren artean

Peter Kopelman txostenaren **egileetako** baten arabera, haurren gizentasun arazoei irtenbideren bat aurkitu ezean, etorkizunean osasun arazoak ugaritu egingo dira. Berria - Gaiak

Frantziskotar ikertzaileek zalantzak izan dituzte, otoitz honen **egilea** Frantzisko ote den ala ez. Askoren artean

Ez da segurua **egilea** Zelano denik. Askoren artean

Egilea eta testuingurua. Askoren artean

Egilea esferez eta berauen mugimenduez ari da, hauek aldez frogagarri eta aldez hipotetikoak izanik, beste toki batzuetan azalduko duenez. Xabier Kintana

Irudia mimesi bezala hartzen duen semiotika bat, esan nahi dute artikuluaren **egileek**. Josu Zabaleta

Alegoriazko adiera honen adibidetzat, **egileak** kapituluaren bukaeran hitz hauek aipatzen ditu: "Moises Jainkoagana igo zen". Xabier Kintana

Testuaren hitzez hitzeko adierari dagokionez, -zioen objekzioaren **egileak**. Xabier Kintana

Proklo, Euklidesen iruzkina egin zuena; eta Eutozio, Apolonioren eta Arkimedesen iruzkinen **egilea**. Jon Muñoz

Orduan, salakuntza guztietatik libre bidali zuen erregeak Menelao, kalte guztien **egilea**. Elizen arteko biblia

1931. urtea arte, ez zion hiriak bertako himno ofiziala den Donostiako Martxaren **egileari** kale izendegian batere ezagutzarik eman. Askoren artean

Zerbitzariak tai-chi **egile** baten abiaduraz luzatu zuen eskuin eskuko eri zuzena, barra gibeleko ispiluaren gaineko erlojurat. Aingeru Epaltza

Gurean ostera Juan Sebastian Elkano dute ia denek balentria horren **egiletzat**. Edorta Jimenez

Martxoaren 11ko atentatuaren **egilea** «inolako zalantzarik gabe» ETA zela esan zuen Angel Acebes Barne ministroak. Berria - Harian

Eraikitakoak suari eusten badio, **egileak** saria hartuko du. Elizen arteko biblia

Frantziskoren idazki batzuk benetako elkarlan dira, eta esan daiteke taldea dela horien **egilea**: alegia, Frantzisko eta bere anaiak, Lehen Erregela-ren kasuan argi ikus daitekeenez. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egile intelektualak «ez urruneko mendietan ez urrutiko basamortuetan» ez zirela bilatu behar esan zuen, beste azalpenik gabe. Berria - Harian

Hiriko **egile** garestienen koadro batzuk paretaren apaingarri. Aingeru Epaltza

Delituez eta Zigorrez-en **egile** bihozberak arrazoi osoa du kexuz esaten duenean zigorra krimena baino gogorragoa izaten dela askotan. Juan Martin Elexpuru

Egile italiarra izan zen aipatuena, Benthanen ondoren, gure lehen Kodea egiteko izan ziren eztabaidetan. Juan Martin Elexpuru

Atentatuaren **egile** nagusia fusilatu egin dute. Josu Zabaleta

Delituei eta zigorrei buruz italieraz argitaratu den tratatuaren **egile** ezezagunari. Juan Martin Elexpuru

Egile zehatzik ez balego, argitalpenaren organismo arduraduna litzateke alfabetikoki kontuan hartzeko hurrengoa; edo bestela izenburua. Askoren artean

Bestek eraginik bezala diharduen **egile** inkontziente bat dirudi emanaldietan. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ni hasi nintzenean ez zegoen **egile** eskubiderik euskal literaturan. Ana Urkiza

Dei Delitti e delle Pene 1764an argitaratu zen Livornon, **egile**-izenik gabe, Marco Coltellini Abatearen moldiztegian. Juan Martin Elexpuru

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haragitegi on guzietan markatua duzu orai erosten duzun xingarra nongo zerriarena den, helburu berarekin ari izan gira okin eta bixkotx **egileak**. Herria

Hogoi bat urte huntan eskualde huntako pilota **egile** handiena zen Jean Paul Mendiharat Danieleneko gure herritarra. Herria

1990ean zabaldu zuen AEBetako Merkataritza Batzorde Federalak Microsoften aurkako lehen ikerketa, IBM konputagailu **egilearekin** legez kanpoko tratuetan ari zelakoan. Berria - Ekonomia

Airbus hegazkin **egilearen** emaitza onei esker, EADSk 2002. urtean pilatu zituen 299 milioi euroko galera handiak irabazi bilakatu dira 2003an (152milioi euro). Berria - Ekonomia

Lehen greziarrak herri txikiak ziren, maiz sakabanatuak, pirata itsasoan, bidegabe-**egile** lehorrean, ez gizabiderik ez legerik ez zutenak. Iñaki Iñurrieta

Ximurraren ama, seme-alabak eta gainerako jendakiak, begitartea minaren, nahasmenduaren eta arinduraren artean kulunkan, eta kazetari tropa ugaria -dolu **egileak** adina-, pasealari kezkagabeen tankeran. Aingeru Epaltza

Erregea hiltzeko saio-**egileak** laurdenkatuak izaten ziren plazan. Felipe Juaristi

Hala pentsatu dute inkesta **egileek** izan diten jendarma, juje edo adituek. Herria

Gerra-**egileek** bakearen fruituak, dantza eta martxa tarteko, ahantz ez zitzaten. Felipe Juaristi

Lekukoek zehaztu zutenez, liskarretan protesta **egileen** artean lau lagun atxilotu zituzten. Berria - Mundua

Ez dugu eztabaidatuko Donatoz, trikimailu **egile** bizkor bat baizik ez baita. Hortaz, metafisika **egile** bilakatu eta Izanaren eremuan sartu garela esan dezakegu. Josu Zabaleta

Alarengandik zuzenean, behingoz bere kausaren aldeko laudorio-**egilea**, erabat gaitzetsi ezin izango geniokeena, zeren, dena dela, seguru baita ongi ezagutzen duela bere burua. Inbertsio **egileen** hoztasuna ikusita, Google bilatzaileak akzioen prezioak 85 eta 95 dolar bitarteraino jaitsi ditu. Jon Alonso

Adimenotako bat, gugandik hurbilena, endelegu **egilea** da, lurrarentzat eta gizateriarentzat garrantzi erabakigarria duena. Xabier Kintana

Eguzki horren, endelegu **egilearen**, argiak beste eskeleto batzuk, gauzen formak, gure eguneroko bizitzan materiak estalita dituen formak ikusteko modua eskaintzen digu. Xabier Kintana

5 (E larriz) Jainkoa.

Jende xehea zapaltzen duenak irain egiten dio **Egileari**, behartsuaz errukitzen denak ohore ematen. Elizen arteko biblia

Zeren, ozpinduta dagoela-eta madarikatzen bazaitu, **Egileak** entzun egingo baitio madarikazioa. Elizen arteko biblia

Gorputzak maite badituzu, gorets ezazu haietan Jaungoikoa, eta bihurtu ezazu maitasun hori **Egileagana**, atsegin dituzunetan hura atsekabetu ez dezazun. Imanol Unzurrunzaga

Egun hartan, gizakiak bere **Egileari** begiratuko dio eta Israelgo Santuarengana zuzenduko ditu begiak. Elizen arteko biblia

Jainkoa baino zuzenagoa izango ote da gizakia? **Egilea** bera baino garbiagoa izango ote? Elizen arteko biblia

Ez zin egin, ez **Egileagatik**, ez sorkariagatik, non ez den egiaz, beharrez eta begirunez. Patxi Altuna

Hauekin eta antzeko beste hainbat testigantzarekin frogatzen da gauza hauek guztiak eginak izan aurretik **Egileak** ezagutzen zituela; eta egiazkoagoak, betikoak eta aldaezinak ziren heinean **Egilearen** ezagumenean. Imanol Unzurrunzaga

6 ***besta egile*** *izond/iz*

Ez ditu beti saindu urratsak erabili armada aitzindari gazte alegera eta **besta egile** hasi zen gazte harek. -Kasik, erran nezake, bertsolari bat obligatia dela, ez, **besta egile** izaitea? Herria

Lehen ikazkin zahar bat zinen, soinekoak dena petaxu, zuhaur zikinak jana, **besta-egile** gogorra, denetan arno gorriz (edo beltzez) ezin asea! Herria

Besta-egile kopurua handitua zen, ordea, ni antzeztokitik desagertu bitartean. Aingeru Epaltza

Bazen beraz hor beti **besta egile** multzo bat. Michel Oronoz

7 ***biolin-egile***

Giovanni Paolo Bresciakoa, **biolin-egilea** bere herrian, garai hartan, bere langintzaren gora-beherengatik, Venezian bizi zena, biolinak egiteko tailer bat sortu nahi baitzuen bertan. Felipe Juaristi

"Santutasuna" aipatu zuen Paolo **biolin egileak**. Felipe Juaristi

Alabak aitari zor dion errespetuarekin batera, hareganako maitasuna ere agerian utzi nahiz, berarekin beti eraman ohi zuen biolina, Gardiner **biolin-egileak** berarentzat propio landutako biolin kolore gorri bat. Felipe Juaristi

8 *dekoratu egile* ik **dekoratugile**.

9 *inkesta egile* ik **inkestagile**.

10 *iruzkin egile* ik **iruzkingile**.

11 *mirari egile* ik **mirarigile**.

12 ***orro egile*** *izond*

Belarriak sorgortu zitzaizkidan arte ez nuen burua biratu, eta orduan argi itsugarri batek biluztu ninduen bide erdian: ni besarkatzera heldu zen munstro **orro-egilearen** begiak. Aingeru Epaltza

Begira, horra haizea bera, izadian den indarrik handiena, jendea lurrera botatzen duena, [...] haize hiltzaile, ziztugile, intziri egile, **orro egile** hori, ikusi al duzu, ikusi ahal dezakezu? Imanol Unzurrunzaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

atentatuaren egile (4); **baten egile** (10); **bere egile** (11); **bere egile eta** (6); **besta egile** (6); **beste egile** (24); **beste egile batzuek** (7); **beste egile batzuen** (5); **bi egile** (4); **bixkotx egile** (7); **bixkotxa egile** (4); **da egile** (8); **den egile** (5); **dira egile** (7); **du egile** (5); **egile asko** (6); **egile askoren** (8); **egile askoren artean** (4); **egile bakoitzaren** (5); **egile bat** (19); **egile batek** (8); **egile baten** (20); **egile bati** (6); **egile batzuek** (11); **egile batzuen** (8); **egile batzuk** (4); **egile berak** (4); **egile beraren** (11); **egile berriak** (4); **egile bezala** (7); **egile den** (6); **egile edo** (4); **egile eskubideak** (25); **egile eskubideei** (4); **egile eskubideen** (10); **egile eta** (54); **egile ezagunak** (4); **egile ezezaguna** (4); **egile gazteen** (5); **egile gisa** (16); **egile guzieri** (4); **egile honek** (7); **egile honen** (5); **egile hori** (5); **egile horiek** (8); **egile horien** (9); **egile horrek** (6); **egile horren** (7); **egile hura** (5); **egile intelektualak** (4); **egile izan** (13); **egile nagusia** (5); **egile onenaren** (7); **egile onenaren max** (4); **eta beste egile** (4); **eta egile** (29); **filma egile** (6); **filma egile gazteen** (5); **gerra egile** (4); **guztien egile** (4); **hainbat egile** (6); **honen egile** (4); **horren egile** (8); **hunen egile** (4); **kantu egile** (9); **kasu egile** (6); **katiximа egile** (15); **katiximа egile eta** (4); **liburuaren egile** (5); **musika egile** (5); **pastoral egile** (4); **so egile** (17); **zenbait egile** (5)

askoren egilea (5); **atentatuaren egilea** (5); **atentatuen egilea** (10); **atentatuen egilea eta** (6); **baten egilea** (12); **bere egilea** (15); **da egilea** (21); **du egilea** (5); **duen egilea** (4); **egilea bera** (14); **egilea da** (41); **egilea dela** (6); **egilea edo** (5); **egilea ere** (16); **egilea eta** (61); **egilea eta izan** (4); **egilea eta zela** (7); **egilea ez** (11); **egilea izan** (8); **egilea naiz** (5); **egilea nor** (12); **egilea nor den** (4); **egilea nor zen** (7); **egilea zen** (7); **eleberriaren egilea** (6); **eskuizkribuaren egilea** (6); **eta bere egilea** (4); **eta egilea** (22); **eta zerbitzu egilea** (5); **gauza guztien egilea** (11); **guztien egilea** (17); **haren egilea** (5); **hauen egilea** (4); **hiztegiaren egilea** (5); **honen egilea** (14); **horien egilea** (9); **horren egilea** (22); **ikerketaren egilea** (4); **itzulpenaren egilea** (4); **kazeta egilea** (4); **kazeta egilea naiz** (4); **lanaren egilea** (8); **liburua egilea** (4); **liburuaren egilea** (36); **liburuaren egilea da** (4); **liburuen egilea** (6); **libururen egilea** (5); **lurren egilea** (4); **musikaren egilea** (6); **ni kazeta egilea** (4); **obraren egilea** (4); **ren egilea** (8); **saiakera egilea** (4); **so egilea** (6); **txostenaren egilea** (4); **z liburua egilea** (4); **zen egilea** (6); **zerbitzu egilea** (10); **zeuen egilea** (5)

artikuluaren egileak (9); **atentatuaren egileak** (8); **atentatuen egileak** (6); **atzo egileak** (4); **auto egileak** (4); **azaldu du egileak** (10); **baina egileak** (12); **baitu egileak** (4); **baten egileak** (8); **bere egileak** (5); **biolin egileak** (4); **da egileak** (12); **dio egileak** (15); **dira egileak** (9); **ditu egileak** (39); **du egileak** (91); **du liburuaren egileak** (4); **duen egileak** (4); **edo egileak** (4); **egileak atxilotzeko** (5); **egileak behar** (4); **egileak berak** (64); **egileak bere** (23); **egileak dioenez** (8); **egileak egin** (6); **egileak ere** (7); **egileak eta** (24); **egileak ez** (37); **egileak ez dira** (4); **egileak ez du** (9); **egileak ez zuen** (6); **egileak hemen** (6); **egileak izan** (11); **egileak izan ziren** (4); **egileak liburuan** (6); **egileak oso** (4); **egileak zeintzuk** (4); **egin du egileak** (4); **en egileak** (5); **esan zuen egileak** (6); **eta egileak** (36); **ezkila egileak** (4); **filmaren egileak** (6); **hauen egileak** (5); **honen egileak** (14); **hor egileak** (4); **horien egileak** (9); **horren egileak** (8); **ikerketaren egileak** (4); **katiximа egileak** (4); **lanaren egileak** (4); **liburuaren egileak** (31); **lurren egileak** (4); **protesta egileak** (4); **ren egileak** (9); **so egileak** (8); **txostenaren egileak** (10); **uste du egileak** (6); **zeru lurren egileak** (4); **zituen egileak** (7); **zuen egileak** (24)

baina egilearen (4); **bere egilearen** (8); **bere egileari** (5); **da egilearen** (11); **da egilearen eta** (5); **da egilearentzat** (4); **dio egileari** (6); **egilearen abizena** (4); **egilearen arabera** (19); **egilearen asmoa** (6); **egilearen begirada** (4); **egilearen beraren** (12); **egilearen esanetan** (14); **egilearen eta** (13); **egilearen hitzaurrea** (4); **egilearen hitzetan** (14); **egilearen iritziz** (7); **egilearen izena** (11); **egilearen izenik** (7); **egilearen lan** (5); **egilearen lehen** (4); **egilearen ustez** (13); **egileari buruzko** (9); **egileari eta** (6); **eta egilearen** (18); **liburuaren egilearen** (6)

nabarmen egin (124); **nabarmen egin du** (63); **nagusia egin** (65); **nahastu egin** (59); **nahi duena egin** (34); **nahikoa egin** (61); **nahita egin** (31); **negar egin** (297); **negar egin nuen** (30); **negar egin zuen** (76); **negarrik egin** (64); **nekatu egin** (38); **nekez egin** (44); **nekien zer egin** (48); **neuk egin** (41); **nik egin** (104); **nireak egin** (32); **nirekin hitz egin** (31); **noiz egin** (47); **nola aurre egin** (35); **nola egin** (586); **nola egin behar** (65); **non egin** (56); **nork egin** (127); **nuen egin** (94); **nun zer egin** (42)

ofiziala egin (32); **ohartu ere egin** (51); **ohitu egin** (49); **oihu egin** (1111); **oihu egin du** (33); **oihu egin nuen** (36); **oihu egin zien** (36); **oihu egin zion** (165); **oihu egin zuen** (609); **oihu egin zuten** (32); **oinez egin** (42); **oka egin** (33); **oker egin** (38); **okerrera egin** (173); **okerrera egin du** (47); **okertu egin** (65); **oldartu egin** (38); **omenaldia egin** (87); **on bat egin** (40); **on egin** (161); **ona egin** (455); **ona egin du** (31); **ona egin zuen** (73); **onak egin** (69); **onartu egin** (415); **onartu egin behar** (44); **onartu egin du** (47); **onartu egin zuen** (126); **onartu egin zuten** (31); **ondo egin** (218); **ondo lo egin** (49); **ondoan egin** (40); **ondoren egin** (88); **onena egin** (64); **ongi egin** (135); **ongi etorri egin** (106); **ongi etorria egin** (86); **ongietorria egin** (44); **onik egin** (69); **orain arte egin** (119); **orain egin** (47); **ordaindu egin** (90); **ordaindu egin behar** (43); **orduan egin** (63); **orokorra egin** (48); **orro egin** (52); **orro egin zuen** (31); **osoa egin** (60); **osoan egin** (51); **osoz egin** (31); **ospa egin** (102); **ostean egin** (63); **otoitz egin** (231); **otoitz egin zuen** (31)

pare bat egin (47); **parra egin** (45); **partida egin** (48); **partida ona egin** (55); **pasa egin** (31); **pasatu ere egin** (33); **pentsatu ere egin** (67); **pixa egin** (47); **pixka bat egin** (53); **piztu egin** (74); **plantak egin** (51); **polita egin** (93); **polita egin zuen** (32); **politika egin** (35); **politikoa egin** (36); **porrot egin** (380); **porrot egin du** (52); **porrot egin duela** (55); **porrot egin dute** (34); **porrot egin zuen** (58); **poztu egin** (146); **poztu egin zen** (49); **presioa egin** (50); **proba egin** (45); **probak egin** (40); **promes egin** (57); **proposamen bat egin** (36); **proposamen egin** (45); **proposamena egin** (195); **proposamena egin du** (30); **proposamenak egin** (33); **protesta egin** (190); **protesta egin zuen** (30); **protesta egin zuten** (54); **protestak egin** (41); **publiko egin** (86); **publikoa egin** (40); **puntu egin** (53); **purrust egin** (32); **putz egin** (55)

saihestu egin (36); **saio egin** (61); **saioa egin** (118); **saioak egin** (31); **sakabanatu egin** (30); **sakona egin** (88); **salaketa egin** (41); **salatu egin** (79); **salbatu egin** (34); **saldu egin** (67); **salto egin** (316); **salto egin eta** (71); **salto egin zuen** (85); **sartu egin** (68); **seinalea egin** (49); **sekula egin** (68); **sendatu egin** (41); **sendotu egin** (71); **serioa egin** (33); **sinetsi egin** (99); **so egin** (390); **so egin nion** (33); **so egin zion** (116); **soilik egin** (59); **sufritu egin** (32); **sumindu egin** (36); **suntsitu egin** (71); **suspertu egin** (34)

taldeak egin (50); **talka egin** (99); **tanto egin** (115); **tanto egin zituen** (58); **tira egin** (143); **tira egin zion** (40); **tiro egin** (423); **tiro egin eta** (33); **tiro egin zion** (50); **tiro egin zuen** (46); **tiro egin zuten** (30); **tokia egin** (31); **topa egin** (69); **topo egin** (481); **topo egin eta** (41); **topo egin nuen** (34); **topo egin zuen** (83); **topo egin zuten** (48); **torturatu egin** (60); **traizio egin** (39); **tu egin** (47); **txalo egin** (57); **txalotu egin** (52); **txarra egin** (68); **txiki bat egin** (145); **txiki egin** (75); **txiki txiki egin** (62); **txikia egin** (51); **txikitu egin** (32); **txistu egin** (40); **txostena egin** (46); **txukuna egin** (127); **txukuna egin zuen** (41)

ugaldu egin (30); **ugari egin** (265); **ugaritu egin** (87); **ugaritu egin dira** (44); **ukatu egin** (615); **ukatu egin du** (129); **ukatu egin zuen** (266); **ukatu egin zuten** (45); **ukitu egin** (32); **ukitu ere egin** (41); **uko egin** (1520); **uko egin behar** (80); **uko egin dio** (170); **uko egin diote** (82); **uko egin eta** (71); **uko egin gabe** (53); **uko egin nion** (32); **uko egin zion** (307); **uko egin zioten** (124); **ulertu egin** (61); **urrats bat egin** (81); **urrats batzuk egin** (31); **urrats egin** (62); **urratsa egin** (99); **urratsak egin** (118); **urratsik egin** (30); **urratu egin** (37); **urrundu egin** (87); **urte egin** (306); **urte egin ditu** (57); **urte egin zituen** (57); **urtean egin** (75); **urtebete egin** (35); **urteetan egin** (44); **urtero egin** (33); **urtez egin** (31); **utzi egin** (424); **utzi egin behar** (95); **utzi egin zion** (41); **utzi egin zuen** (56)

ñ ñ oihu egin (32); **oihu egin zuen** (32); **zabala egin** (56); **zabaldu egin** (149); **zaiona egin** (56); **zaiona egin zuen** (46); **zalantza egin** (89); **zalantza egin zuen** (41); **zalantzarik egin** (33); **zapuztu egin** (36); **zaratarik egin** (36); **zart egin** (36); **zaunka egin** (41); **zauritu egin** (64); **zehatza egin** (74); **zehatzak egin** (32); **zekien zer egin** (54); **zela egin** (68); **zelan egin** (30); **zen egin** (78); **zer egin** (3368); **zer egin behar** (779); **zer egin beharko** (49); **zer egin daiteke** (41); **zer egin daitekeen** (30); **zer egin dezake** (33); **zer egin dezaket** (53); **zer egin duen** (39); **zer egin duzu** (48); **zer egin eta** (65); **zer egin ez** (170); **zer egin jakin** (31); **zer egin nahi** (91); **zer egin nezakeen** (44); **zer egin ote** (35); **zer egin zezakeen** (41); **zer egin zuen** (103); **zerbait egin** (480); **zerbait egin behar** (110); **zerbait egin beharko** (32); **zerbait egin beharra** (43); **zerbait egin nahi** (48); **zergatik egin** (203); **zertaz hitz egin** (47); **zigortu egin** (63); **zin egin** (429); **zin egin zion** (43); **zin egin zuen** (80); **zina egin** (32); **zion egin** (44); **zion jaramonik egin** (44); **zirkinik egin** (95); **zirkinik egin gabe** (46); **zirkinik ere egin** (48); **zituen egin** (36); **zorabiatu egin** (31); **zoratu egin** (40); **zorrotza egin** (44); **zuela egin** (68); **zuen egin** (264); **zuen ezer egin** (66); **zuen huts egin** (59); **zuen hutsik egin** (44); **zuena egin** (59); **zuk egin** (65); **zuloa egin** (33); **zurbildu egin** (32); **zurekin hitz egin** (59); **zuten egin** (113); **zuten ezer egin** (35); **zutitu egin** (256); **zutitu egin zen** (187); **zuzena egin** (65); **zuzendu egin** (32)

alde egina (97); **alde egina zen** (32); **alde eginak** (43); **bat egina** (212); **bat egina izan** (30); **batek egina** (37); **burutik egina** (35); **egina da** (213); **egina dago** (130); **egina dagoela** (45); **egina dela** (63); **egina den** (69); **egina du** (81); **egina dute** (43); **egina eta** (59); **egina ez** (30); **egina izan** (256); **egina izan da** (69); **egina izan den** (36); **egina izanen** (82); **egina izanen da** (44); **egina nuen** (47); **egina zegoen** (75); **egina zela** (80); **egina zen** (196); **egina zion** (44); **egina zuela** (46); **egina zuen** (211); **egina zuten** (104); **eginak daude** (33); **eginak dira** (121); **eginak direla** (44); **eginak diren** (38); **eginak eta** (57); **eginak izan** (188); **eginak izan dira** (73); **eginak izan diren** (36); **eginak izanen** (30); **eginak ziren** (84); **eginak zituen** (67); **eginak zituzten** (38); **ehorzketak eginak** (30); **ehorzketak eginak izan** (30); **ere egina** (42); **gaizki egina** (38); **hori egina** (34); **ihes egina** (47); **leher egina** (39); **ondo egina** (45)

alde eginda (50); **asper eginda** (31); **bat eginda** (310); **blai eginda** (82); **burutik eginda** (55); **eginda dago** (95); **eginda daude** (43); **eginda ere** (167); **eginda eta** (50); **eginda geratu** (33); **eginda nago** (51); **eginda nengoen** (41); **eginda utzi** (41); **eginda zegoela** (34); **eginda zegoen** (99); **eginda zeuden** (33); **entsegu eginda** (52); **hitz eginda** (73); **hori eginda** (43); **ihes eginda** (70); **lan eginda** (31); **leher eginda** (107); **mozkor eginda** (36); **mozkor mozkor eginda** (34); **nazka eginda** (47); **nazka nazka eginda** (43); **neka eginda** (46); **neka neka eginda** (46); **tiro eginda** (30); **txiki eginda** (57); **txiki txiki eginda** (56); **txora eginda** (45); **txora txora eginda** (45)

alde egindako (134); **arte egindako** (135); **artean egindako** (52); **atzo egindako** (130); **aurka egindako** (103); **aurrean egindako** (96); **aurretik egindako** (51); **batean egindako** (52); **batek egindako** (76); **batera egindako** (38); **begira egindako** (31); **berak egindako** (90); **bilbon egindako** (55); **buruz egindako** (88); **donostian egindako** (44); **egindako adierazpenak** (100); **egindako adierazpenei** (38); **egindako adierazpenen** (41); **egindako adierazpenetan** (147); **egindako agerraldian** (249); **egindako ahalegina** (36); **egindako azken** (83); **egindako azterketa** (47); **egindako batzarrean** (31); **egindako beste** (42); **egindako bi** (56); **egindako bidaia** (71); **egindako bidea** (38); **egindako bilera** (44); **egindako bileran** (95); **egindako bisita** (30); **egindako ekintza** (34); **egindako ekitaldian** (50); **egindako elkarrizketa** (66); **egindako elkarrizketan** (54); **egindako eraso** (31); **egindako erasoan** (34); **egindako eskaera** (52); **egindako eskaintza** (44); **egindako galdera** (39); **egindako guztia** (44); **egindako hainbat** (53); **egindako ikerketa** (65); **egindako ikerketa baten** (34); **egindako lan** (158); **egindako lana** (311); **egindako lanagatik** (59); **egindako lanak** (100); **egindako lanarekin** (81); **egindako lanaren** (124); **egindako lanarengatik** (31); **egindako lanari** (57); **egindako lanari esker** (31); **egindako lehen** (59); **egindako manifestazioan** (32); **egindako proposamena** (67); **egindako txosten** (37); **egindako zenbait** (30); **elkarrekin egindako** (30); **eta egindako** (89); **etxean egindako** (56); **gainean egindako** (48); **gobernuak egindako** (48); **hark egindako** (41); **herenegun egindako** (65); **huts egindako** (42); **ihes egindako** (96); **inguruan egindako** (72); **kontra egindako** (65); **lan egindako** (42); **legebiltzarrean egindako** (31); **nik egindako** (31); **orain arte egindako** (100); **taldeak egindako** (30); **urtean egindako** (32); **urteetan egindako** (42); **zehar egindako** (41)

alde eginen (58); **an eginen** (35); **bat eginen** (320); **bat eginen da** (82); **bat eginen du** (32); **bat eginen dute** (35); **bera eginen** (32); **biltzar nagusia eginen** (45); **eginen da** (606); **eginen dela** (70); **eginen den** (135); **eginen diote** (39); **eginen dira** (170); **eginen diren** (56); **eginen ditu** (73); **eginen dituzte** (80); **eginen du** (396); **eginen duela** (116); **eginen duen** (112); **eginen dugu** (116); **eginen dut** (105); **eginen dute** (375); **eginen dutela** (78); **eginen duten** (71); **eginen duzu** (34); **eginen duzue** (38); **eginen nuke** (36); **eginen ote** (43); **eginen zuela** (49); **eginen zuen** (67); **eginen zuten** (36); **ere eginen** (61); **hitz eginen** (53); **hori eginen** (50); **lan eginen** (46); **nagusia eginen** (48); **nagusia eginen du** (31); **nola eginen** (53); **zer eginen** (201)

alde eginez (60); **atzera eginez** (58); **aurre eginez** (77); **aurrera eginez** (90); **aurrera eginez gero** (38); **barre eginez** (41); **bat eginez** (562); **bat eginez gero** (53); **bide eginez** (44); **bidea eginez** (38); **bultza eginez** (30); **dei eginez** (43); **eginez bezala** (56); **eginez eta** (202); **eginez ez** (30); **eginez gero** (727); **erreferentzia eginez** (33); **hala eginez** (39); **hala eginez gero** (31); **handia eginez** (37); **hasperen eginez** (45); **hitz eginez** (218); **hori eginez** (84); **hori eginez gero** (49); **huts eginez** (47); **huts eginez gero** (36); **ihes eginez** (51); **irribarre eginez** (75); **itxurak eginez** (83); **jauzi eginez** (43); **kasu eginez** (90); **keinu eginez** (34); **keinua eginez** (72); **keinuak eginez** (32); **lan eginez** (89); **luzeak eginez** (33); **men eginez** (72); **muzin eginez** (53); **oihu eginez** (33); **otoitz eginez** (32); **plantak eginez** (47); **salto eginez** (30); **so eginez** (109); **txikiak eginez** (32); **uko eginez** (91); **zin eginez** (92)

ahalegina egingo (88); **ahalegina egingo du** (33); **ahaleginak egingo** (50); **ahaztu egingo** (37); **akabatu egingo** (38); **aldaketa egingo** (84); **aldaketa egingo ditu** (72); **aldaketak egingo** (38); **aldatu egingo** (85); **alde egingo** (399); **alde egingo du** (52); **apustu egingo** (51); **apustu egingo nuke** (35); **areagotu egingo** (47); **asko egingo** (38); **atzera egingo** (57); **aurka egingo** (63); **aurre egingo** (106); **aurrera egingo** (238); **aurrera egingo du** (34); **baina zer egingo** (31); **bakarrik egingo** (33); **barre egingo** (90); **bat egingo** (729); **bat egingo da** (50); **bat egingo du** (118); **bat egingo duela** (32); **bat egingo dugu** (54); **bat egingo dut** (40); **bat egingo dute** (112); **batean egingo** (38); **batek egingo** (40); **batzarra egingo** (58); **batzuk egingo** (42); **behera egingo** (43); **bera egingo** (91); **berezia egingo** (44); **bertan egingo** (58); **bete egingo** (56); **bezala egingo** (42); **bidea egingo** (49); **bihar egingo** (81); **bikoiztu egingo** (30); **bilbon egingo** (48); **bilera egingo** (110); **bilera egingo du** (34); **bilera egingo dute** (58); **bitartean egingo** (35); **bota egingo** (81); **buruz hitz egingo** (48); **dagoen guztia egingo** (34); **dei egingo** (32); **desagertu egingo** (89); **desagertu egingo da** (36); **donostian egingo** (45); **du egingo** (43); **egin egingo** (56)

egingo al (111); **egingo baitu** (36); **egingo balitz** (34); **egingo balu** (109); **egingo balute** (47); **egingo da** (1372); **egingo da eta** (47); **egingo da gaur** (39); **egingo dela** (264); **egingo den** (508); **egingo diagu** (78); **egingo diat** (97); **egingo die** (102); **egingo diela** (32); **egingo diete** (65); **egingo dik** (43); **egingo dio** (328); **egingo dio bisita** (75); **egingo diogu** (91); **egingo diola** (66); **egingo dion** (58); **egingo diot** (93); **egingo diote** (293); **egingo diotela** (40); **egingo dioten** (34); **egingo diozu** (30); **egingo dira** (743); **egingo dira eta** (30); **egingo direla** (122); **egingo diren** (298); **egingo dit** (32); **egingo ditu** (572); **egingo dituela** (100); **egingo dituen** (71); **egingo ditugu** (112); **egingo ditut** (158); **egingo dituzte** (640); **egingo dituztela** (100); **egingo dituzten** (84); **egingo dituzu** (31); **egingo dituzue** (31); **egingo dizu** (67); **egingo dizut** (106); **egingo du** (2238); **egingo du bihar** (38); **egingo du eta** (63); **egingo du gaur** (73); **egingo dudala** (45); **egingo dudan** (44); **egingo duela** (556); **egingo duela esan** (45); **egingo duela iragarri** (37); **egingo duen** (496); **egingo duena** (38); **egingo dugu** (778); **egingo dugula** (48); **egingo dugun** (51); **egingo duk** (51); **egingo dut** (731); **egingo dute** (2083); **egingo dute bihar** (44); **egingo dute eta** (34); **egingo dute gaur** (150); **egingo dutela** (352); **egingo dutela iragarri** (43); **egingo duten** (318); **egingo duzu** (191); **egingo duzue** (115)

egingo eta (59); **egingo ez** (217); **egingo gara** (71); **egingo genuela** (35); **egingo genuen** (52); **egingo genuke** (47); **egingo haut** (34); **egingo lioke** (54); **egingo lirateke** (33); **egingo litzateke** (97); **egingo luke** (164); **egingo lukeela** (42); **egingo lukeen** (65); **egingo lukete** (73); **egingo naiz** (125); **egingo nau** (35); **egingo nuela** (65); **egingo nuen** (113); **egingo nuke** (296); **egingo nukeen** (31); **egingo omen** (44); **egingo ote** (156); **egingo zaie** (46); **egingo zaio** (101); **egingo zaitu** (31); **egingo zaitut** (66); **egingo zaituzte** (50); **egingo zaituztet** (34); **egingo zara** (53); **egingo zela** (130); **egingo zen** (121); **egingo zenuke** (56); **egingo zidala** (36); **egingo ziola** (82); **egingo zion** (95); **egingo zirela** (32); **egingo zituela** (54); **egingo zituen** (46); **egingo zituztela** (30); **egingo zuela** (319); **egingo zuen** (372); **egingo zukeen** (61); **egingo zutela** (149); **egingo zuten** (162)

ekitaldia egingo (57); **ekitaldia egingo dute** (33); **elkarretaratzea egingo** (115); **elkarretaratzea egingo dute** (74); **elkarretaratzeak egingo** (37); **eraso egingo** (34); **ere egingo** (317); **erori egingo** (33); **erotu egingo** (31); **erre egingo** (46); **erreferenduma egingo** (44); **esan egingo** (32); **eta egingo** (69); **eta hil egingo** (43); **eta zer egingo** (55); **eutsi egingo** (48); **ez du egingo** (36); **ezer egingo** (59); **ezkondu egingo** (37); **galdu egingo** (113); **gaur egingo** (139); **gauza bera egingo** (65); **gehiago egingo** (99); **gora egingo** (119); **gora egingo du** (32); **greba egingo** (30); **guztia egingo** (115); **guztiak egingo** (32); **hala egingo** (76); **handia egingo** (101); **handitu egingo** (58); **harritu egingo** (36); **haserretu egingo** (31); **hauteskundeak egingo** (42); **hautsi egingo** (32); **hil egingo** (349); **hil egingo da** (43); **hitz egingo** (670); **hitz egingo du** (64); **hitz egingo dugu** (70); **hitz egingo dut** (70); **hitz egingo dute** (58); **hobera egingo** (39); **hori egingo** (79); **horixe egingo** (39); **horrelakorik egingo** (35); **hots egingo** (35); **huts egingo** (133); **hutsik egingo** (30); **ihes egingo** (143)

irabazi egingo (45); **itxi egingo** (38); **itzuli egingo** (50); **joan egingo** (75); **jokatu egingo** (49); **kalte egingo** (97); **kalterik egingo** (83); **kendu egingo** (66); **kontra egingo** (53); **lagundu egingo** (46); **lan egingo** (251); **lan egingo du** (31); **lan egingo duela** (36); **lan egingo dugu** (34); **lana egingo** (53); **lepoa egingo** (31); **lo egingo** (49); **manifestazioa egingo** (159); **manifestazioa egingo dute** (111); **mesede egingo** (79); **muzin egingo** (30); **nekez egingo** (30); **noiz egingo** (53); **nola egingo** (90); **non egingo** (33); **nork egingo** (32); **okerrera egingo** (30); **omenaldia egingo** (87); **omenaldia egingo diote** (45); **on egingo** (96); **onartu egingo** (42); **onik egingo** (30); **porrot egingo** (71); **saioa egingo** (39); **suntsitu egingo** (45); **tiro egingo** (35); **topo egingo** (74); **ugari egingo** (30); **uko egingo** (124); **urte egingo** (47); **utzi egingo** (97); **zer egingo** (745); **zer egingo diogu** (52); **zer egingo duen** (58); **zer egingo dugu** (86); **zer egingo dut** (42); **zer egingo duten** (31); **zer egingo duzu** (37); **zerbait egingo** (42); **zigortu egingo** (52); **zin egingo** (35)

atzo eginiko (64); **aurka eginiko** (36); **bat eginik** (340); **bilbon eginiko** (36); **eginik ere** (41); **eginik eta** (65); **eginik ez** (50); **eginik izan** (32); **eginiko adierazpenak** (44); **eginiko adierazpenetan** (55); **eginiko agerraldian** (124); **eginiko azken** (40); **eginiko bileran** (44); **eginiko ekitaldian** (46); **eginiko lan** (54); **eginiko lana** (94); **eginiko lanak** (33); **inguruan eginiko** (35); **kontra eginiko** (32); **zer eginik** (144); **zer eginik ez** (35)

alde egitea (368); **alde egitea erabaki** (41); **alde lan egitea** (34); **atzera egitea** (69); **aurka egitea** (45); **aurre egitea** (201); **aurrera egitea** (310); **barre egitea** (60); **bat egitea** (889); **bat egitea da** (34); **bat egitea erabaki** (65); **baten egitea** (77); **batzuk egitea** (34); **bera egitea** (41); **beste egitea** (39); **buruaz beste egitea** (30); **buruz hitz egitea** (62); **dantza egitea** (30); **egitea baino** (164); **egitea beharrezkoa** (44); **egitea beste** (49); **egitea besterik** (35); **egitea besterik ez** (33); **egitea bezala** (35); **egitea da** (438); **egitea dela** (119); **egitea edo** (60); **egitea egotzi** (99); **egitea erabaki** (524); **egitea erabaki du** (52); **egitea erabaki dute** (52); **egitea erabaki nuen** (47); **egitea erabaki zuen** (122); **egitea erabaki zuten** (85); **egitea ere** (181); **egitea eskatu** (88); **egitea eskatzen** (54); **egitea espero** (93); **egitea eta** (411); **egitea ez** (225); **egitea ez da** (84); **egitea ezinbestekoa** (41); **egitea ezinezkoa** (50); **egitea gustatzen** (53); **egitea izan** (101); **egitea izan zen** (32); **egitea izango** (82); **egitea komeni** (51); **egitea leporatu** (154); **egitea leporatu zion** (44); **egitea leporatzen** (40); **egitea lortu** (250); **egitea lortu zuen** (85); **egitea lortu zuten** (50); **egitea lortzen** (46); **egitea nahi** (124); **egitea onartu** (42); **egitea oso** (61); **egitea pentsatu** (46); **egitea posible** (30); **egitea proposatu** (168); **egitea proposatu du** (33); **egitea proposatu zuen** (55); **egitea proposatzen** (53); **egitea zaila** (40); **egitea zela** (44); **egitea zen** (94); **erreferenduma egitea** (48); **euskaraz egitea** (42); **ez egitea** (421); **ez egitea erabaki** (47); **ez hitz egitea** (37); **galdeketa egitea** (32); **gehiago egitea** (59); **gogoeta egitea** (39); **gora egitea** (55); **hitz egitea** (760); **hitz egitea eta** (30); **hori egitea** (171); **huts egitea** (78); **ihes egitea** (303); **ihes egitea lortu** (105); **iruzur egitea** (46); **itxurak egitea** (35); **jauzi egitea** (30); **kontra egitea** (64); **lan egitea** (373); **lana egitea** (77); **lanak egitea** (30); **lo egitea** (92); **men egitea** (45); **muzin egitea** (41); **ona egitea** (47); **otoitz egitea** (38); **so egitea** (38); **topo egitea** (67); **uko egitea** (181); **urratsak egitea** (31); **zerbait egitea** (75)

alde egitean (44); **bat egiteagatik** (32); **bat egiteak** (57); **bat egitean** (43); **bat egitearen** (42); **bat egiteari** (31); **egiteak ez** (78); **egiteak ez du** (33); **egitearekin batera** (50); **egitearen alde** (73); **egitearen aurka** (36); **egiteari ekin** (54); **egiteari uko** (43); **egiteari utzi** (184); **egiteari utzi zion** (38); **egiteaz gain** (139); **egiteaz gainera** (34); **hitz egiteagatik** (35); **hitz egiteak** (57); **hitz egitean** (155); **hitz egiteari** (106); **hitz egiteari utzi** (35); **hori egitean** (38); **lan egiteak** (33); **lan egiteari** (32); **topo egitean** (45); **uko egiteagatik** (41)

agur egiteko (34); **aitzina egiteko** (49); **aldaketak egiteko** (76); **alde egiteko** (656); **alde egiteko eskatu** (47); **alde lan egiteko** (83); **amets egiteko** (41); **arazoari aurre egiteko** (35); **arazoei aurre egiteko** (43); **asko dago egiteko** (34); **asko egiteko** (39); **atzera egiteko** (89); **aurka egiteko** (158); **aurre egiteko** (2302); **aurre egiteko eta** (43); **aurre egiteko gai** (64); **aurre egiteko neurriak** (60); **aurre egiteko prest** (64); **aurrera egiteko** (749); **aurrera egiteko aukera** (46); **azterketa egiteko** (48); **barre egiteko** (125); **bat egiteko** (1238); **bat egiteko asmoa** (50); **bat egiteko aukera** (70); **bat egiteko eskatu** (52); **baten egiteko** (172); **bati aurre egiteko** (51); **batzuk egiteko** (63); **bera egiteko** (74); **berba egiteko** (54); **bere egiteko** (40); **berri bat egiteko** (30); **berria egiteko** (65); **berriak egiteko** (47); **berriz egiteko** (41); **beste egiteko** (88); **bezala egiteko** (43); **bidaia egiteko** (35); **bidea egiteko** (71); **bidean aurrera egiteko** (33); **bilera egiteko** (50); **bisita egiteko** (41); **borroka egiteko** (66); **buru egiteko** (107); **buruaz beste egiteko** (52); **buruz hitz egiteko** (125); **dago egiteko** (62); **dantza egiteko** (39); **duena egiteko** (35); **ebakuntza egiteko** (41); **edozer egiteko** (61)

egiteko adina (41); **egiteko agindu** (138); **egiteko agindu zuen** (33); **egiteko agindua** (52); **egiteko ahalmena** (71); **egiteko ardura** (55); **egiteko arriskua** (72); **egiteko asko** (42); **egiteko asmoa** (457); **egiteko asmoa du** (56); **egiteko asmoa dute** (38); **egiteko asmoarekin** (44); **egiteko asmorik** (129); **egiteko asmotan** (67); **egiteko asmoz** (119); **egiteko astia** (38); **egiteko astirik** (45); **egiteko aukera** (824); **egiteko aukera eman** (43); **egiteko aukera ematen** (53); **egiteko aukera izan** (79); **egiteko aukera izango** (54); **egiteko aukerak** (49); **egiteko aukerarik** (108); **egiteko baimena** (174); **egiteko baimena eman** (41); **egiteko baino** (35); **egiteko baliatu** (48); **egiteko balio**

(64); **egiteko behar** (109); **egiteko beharra** (81); **egiteko beste** (68); **egiteko bi** (32); **egiteko bide** (51); **egiteko bidea** (79); **egiteko borondatea** (46); **egiteko deia** (108); **egiteko deia egin** (73); **egiteko denbora** (37); **egiteko duen** (49); **egiteko duten** (33); **egiteko edo** (87); **egiteko epea** (36); **egiteko era** (54); **egiteko erabakia** (64); **egiteko erabili** (73); **egiteko erabiliko** (34); **egiteko erabiltzen** (138); **egiteko ere** (193); **egiteko esan** (86); **egiteko eskatu** (613); **egiteko eskatu die** (42); **egiteko eskatu dio** (55); **egiteko eskatu du** (53); **egiteko eskatu zien** (79); **egiteko eskatu zion** (110); **egiteko eskatu zioten** (34); **egiteko eskatu zuen** (54); **egiteko eskatuko** (30); **egiteko eskatzen** (92); **egiteko eskubidea** (110)

egiteko eta (569); **egiteko ez** (88); **egiteko gai** (406); **egiteko gai ez** (37); **egiteko gai izan** (49); **egiteko gai izango** (33); **egiteko gaitasuna** (87); **egiteko garaia** (122); **egiteko garaian** (43); **egiteko gauza** (184); **egiteko gauza ez** (32); **egiteko gisan** (30); **egiteko gogo** (71); **egiteko gogoa** (260); **egiteko gogorik** (73); **egiteko gogoz** (43); **egiteko hori** (36); **egiteko ideia** (32); **egiteko izan** (33); **egiteko joera** (43); **egiteko konpromisoa** (79); **egiteko konpromisoa hartu** (34); **egiteko lanak** (45); **egiteko modu** (204); **egiteko modu bakarra** (37); **egiteko modu bat** (41); **egiteko modua** (153); **egiteko moduak** (32); **egiteko moduan** (125); **egiteko moduko** (44); **egiteko modukoa** (66); **egiteko modurik** (57); **egiteko nagusia** (30); **egiteko neurriak** (71); **egiteko ohitura** (55); **egiteko ordua** (64); **egiteko orduan** (140); **egiteko parada** (77); **egiteko premia** (52); **egiteko prest** (636); **egiteko prest agertu** (50); **egiteko prest dagoela** (50); **egiteko prest daudela** (35); **egiteko prest gaude** (37); **egiteko proiektua** (36); **egiteko proposamena** (42); **egiteko tenorea** (33); **egiteko tresna** (40); **egiteko unea** (57); **egiteko xedea** (38); **egiteko zorian** (72); **egoerari aurre egiteko** (37)

ekarpenak egiteko (62); **elkarrekin lan egiteko** (32); **eraso egiteko** (70); **ere egiteko** (64); **erreferenduma egiteko** (43); **eta alde egiteko** (35); **eta aurrera egiteko** (49); **eta egiteko** (93); **eta hitz egiteko** (56); **eta lan egiteko** (56); **euskaraz egiteko** (40); **ez egiteko** (501); **ez egiteko eskatu** (58); **ezer egiteko** (76); **gaitzari aurre egiteko** (42); **galdeketa egiteko** (42); **galderak egiteko** (37); **gauza bera egiteko** (54); **gauza egiteko** (40); **gauzak egiteko** (53); **gehiago egiteko** (95); **gogoeta egiteko** (135); **gola egiteko** (39); **gora egiteko** (100); **guztia egiteko** (59); **guztiak egiteko** (30); **handia egiteko** (33); **harrera egiteko** (50); **hau egiteko** (41); **hausnarketa egiteko** (33); **hegan egiteko** (39); **hitz egiteko** (1629); **hitz egiteko aukera** (73); **hitz egiteko eta** (40); **hitz egiteko gai** (34); **hitz egiteko modu** (41); **hitz egiteko modua** (33); **hitz egiteko prest** (88); **hori egiteko** (319); **horiei aurre egiteko** (48); **horiek egiteko** (61); **horren egiteko** (49); **horri aurre egiteko** (178); **hura egiteko** (36); **huts egiteko** (55); **ihes egiteko** (496); **ikasketak egiteko** (35); **ikerketa egiteko** (52); **indarkeriari aurre egiteko** (30); **inguruan hitz egiteko** (31); **irri egiteko** (49); **jabe egiteko** (30); **jarraipena egiteko** (47); **jauzi egiteko** (72); **kalte egiteko** (61); **kanpaina egiteko** (34); **kasu egiteko** (49); **kontra egiteko** (196); **lan egiteko** (883); **lan egiteko aukera** (52); **lan egiteko prest** (56); **lana egiteko** (143); **lanak egiteko** (120); **lo egiteko** (218); **min egiteko** (39); **negar egiteko** (105); **oihu egiteko** (33); **ona egiteko** (43); **ondo egiteko** (35); **oraindik egiteko** (34); **otoitz egiteko** (102); **politika egiteko** (71); **presio egiteko** (38); **presioa egiteko** (40); **proposamenak egiteko** (35); **protesta egiteko** (108); **salto egiteko** (36); **so egiteko** (44); **terrorismoari aurre egiteko** (35); **tiro egiteko** (79); **topo egiteko** (44); **uko egiteko** (121); **urratsak egiteko** (86); **zer egiteko** (87); **zerbait egiteko** (153)

bat egitekoa (39); **bere egitekoa** (68); **egitekoa da** (59); **egitekoa den** (74); **egitekoa dute** (30); **egitekoa zen** (96); **egitekoak diren** (115); **egitekoak ziren** (46)

agur egiten (80); **ahalegina egiten** (77); **ahaleginak egiten** (125); **ahaleginak egiten ari** (31); **ahaztu egiten** (166); **ahuldu egiten** (38); **aise egiten** (30); **aldatu egiten** (197); **aldatu egiten da** (58); **aldatu egiten dira** (52); **alde egiten** (857); **alde egiten ari** (30); **alde egiten du** (93); **alde egiten duen** (33); **alde egiten dute** (58); **alde egiten zuen** (68); **alde egiten zuten** (41); **alde lan egiten** (65); **aldeko apustua egiten** (58); **altxatu egiten** (30); **amets egiten** (143); **apustua egiten** (76); **arabera egiten** (49); **arbuiatu egiten** (30); **areagotu egiten** (123); **argazkiak egiten** (30); **argi egiten** (52); **ari da egiten** (67); **ari dira egiten** (41); **ariketak egiten** (49); **artean egiten** (87); **asaldatu egiten** (30); **askatu egiten** (30); **asko egiten** (188); **asko hitz egiten** (95); **askok egiten** (36); **askotan egiten** (59); **aspertu egiten** (85); **atera egiten** (38); **atzera egiten** (143); **aurka egiten** (153); **aurre egiten** (352); **aurrera egiten** (387); **azterketa egiten** (51); **azterketak egiten** (32)

babestu egiten (33); **baietz egiten** (33); **baitan egiten** (33); **bakarrik egiten** (129); **barre egiten** (531); **barre egiten du** (55); **barre egiten zuen** (107); **barre egiten zuten** (33); **bat egiten** (2115); **bat egiten ari** (156); **bat egiten da** (34); **bat egiten du** (191); **bat egiten duela** (74); **bat egiten duen** (55); **bat egiten dugu** (55); **bat egiten dut** (43); **bat egiten dute** (136); **bat egiten dutela** (47); **bat egiten duten** (75); **bat egiten ez** (47); **bat egiten zuela** (30); **bat egiten zuen** (107); **bat egiten zuten** (54); **batean egiten** (133); **batean lan egiten** (60); **batek egiten** (79); **batekin egiten** (40); **batera egiten** (39); **batzuk egiten** (127); **baztertu egiten** (83); **begiratu egiten** (46); **behera egiten** (89); **behin egiten** (67); **bekatu egiten** (91); **beldurtu egiten** (32); **bera egiten** (272); **bera egiten du** (31); **berak egiten** (95); **berba egiten** (91); **berdin egiten** (37); **bere bidea egiten** (35); **bere egiten** (102); **bere lana egiten** (36); **berean egiten** (49); **bereizi egiten** (40); **berezia egiten** (45); **bero egiten** (47); **beroa egiten** (31); **berotu egiten** (30); **berretsi egiten** (38); **berriak egiten** (39); **bertan egiten** (61); **beste egiten** (110); **besterik egiten** (82); **besterik egiten ez** (37); **bete egiten** (48); **beti egiten** (96); **bezala egiten** (151); **bezala hitz egiten** (91); **bi egiten** (31); **bide egiten** (38); **bidea egiten** (195); **bidea egiten ari** (45); **bidez egiten** (90); **bikaina egiten** (47); **bilerak egiten** (34); **bisita egiten** (48); **borroka egiten** (35); **bota egiten** (38); **bultza egiten** (60); **burla egiten** (34); **buru egiten** (115); **buruari egiten** (37); **buruaz beste egiten** (89); **buruz egiten** (72); **buruz hitz egiten** (207)

da egiten (165); **dantza egiten** (65); **dar dar egiten** (64); **dar egiten** (64); **debekatu egiten** (62); **dei egiten** (224); **deia egiten** (75); **dela egiten** (41); **dena egiten** (60); **denek egiten** (34); **desagertu egiten** (97); **desagertu egiten da** (35); **desegin egiten** (32); **deus egiten** (46); **dir dir egiten** (75); **dir egiten** (75); **dira egiten** (88); **distira egiten** (98); **distira egiten zuen** (37); **du egiten** (153); **duda egiten** (55); **dudarik egiten** (35); **duela egiten** (47); **duena egiten** (71); **dugu egiten** (37); **dut egiten** (40); **dute egiten** (90); **dutena egiten** (40); **edan egiten** (30); **ederra egiten** (51); **edo egiten** (61); **egin egiten** (60); **eginahalak egiten** (33)

egiten ahal (388); **egiten ahalegindu** (55); **egiten ahalko** (120); **egiten al** (121); **egiten ari** (4029); **egiten ari da** (445); **egiten ari dela** (130); **egiten ari den** (350); **egiten ari dena** (51); **egiten ari dira** (398); **egiten ari direla** (121); **egiten ari diren** (372); **egiten ari gara** (127); **egiten ari garen** (47); **egiten ari naiz** (53); **egiten ari naizen** (32); **egiten ari nintzela** (30); **egiten ari nintzen** (42); eg

---

eginahal 1 *iz* ahalegina.

Ezagutzen dut zure **eginahala**, zure sugar goria. Jon Muñoz

Dupontek sartu dituen zorroko ilunpean, luze gabe ohartu dira beren **eginahalaren** alferraz. Xabier Montoia

Zer gelditzen zaio gizonari eguzkipean egin duen hainbeste lan eta **eginahaletatik**? Elizen arteko biblia

Begirada finkatzeko **eginahala** zuen pinpirrindua zegoen seinale. Aingeru Epaltza

Dirua berreskuratzen jarri zuen bere **eginahal** guztia. Askoren artean

Bai Chrisek eta bai Lorraine Colek, ordea, **eginahal** guztia egin behar zutela uste zuten, Stephenen bizitza aberatsago egiteko. Xabier Olarra

Eskabide hau egiten dizuet, senideok: lagun diezadazuela **eginahalean**, Jainkoari nire alde otoitz eginez. Elizen arteko biblia

ik beherago 7. Askoren artean

Bigarren **eginahalean**, orduan bai, jo eta igo omen zen zerura. Pako Aristi

-Yusuf, Yusuf! Etorriko zara nirekin zaldiaren eske? -galdetu zion Gülbaharrek azken **eginahalean**. Fernando Rey

Haur haurretik eritasunaren aurka ereman du gudua, etsitu gabe eta bertzeri bere zorigaitza **eginahal** bezainbat jasanarazi gabe. Herria

Gobernuari akordio bat lortzeko egin duen **eginahala** «eskertu» dio. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskal gaiak euskaraz segitzeko **eginahal** handia egin behar dutelako. Pello Salaburu

Langileek **eginahal** handia egin genuen eta soldata eta lanaldia jaitsi genituen baina ez zuen ezertarako balio izan. Berria - Ekonomia

Nondik datorke, andrea, nigandik itzurtzeko egiten duzun **eginahal** krudela? Jon Muñoz

Gelan barna ibiltzen hasi zen, **eginahal** bizian eta sarri keinuak eginez. Jon Muñoz

Azken batean, joko garbia egiten zuten, diru garbiaz ordaindu, eta beti ere **eginahal** betean aritzen ziren. Karlos Zabala

Laster konturatu nintzen larritasun sakon bat, nerbio asaldura gehiegizko bat gainditzeko **eginahal** ahul eta hutsaletatik sortua zela koherentzia falta hura. hondamendiari aurre egiteko eta berreraikuntza sustatzeko **eginahal** bateratua egingo dutela. Koro Navarro

Badaki bere **eginahala** zenbat eta setatsuago izan, orduan eta lerdenagoa izango dela bere ehizaren emaitza. Pako Aristi

Bide hori nerabilen, adibidez, eskuek pala eta pikotxarekin zihardutela -aurrezteko **eginahal** mugatuan betiere, behar-beharrezko mugimenduak soilik eginez-, ni beste barik bertan ez egoteko. Urtzi Urrutikoetxea

Halakoetan ezin esan dira nolako oihuak eta intziriak egiten dituzten, libratzeko **eginahal** alferrekoetan. Koro Navarro

Neure azken **eginahal** hartan. Joan Mari Irigoien

Esan dezaket hainbeste nekeren ostean, alferrikako horrenbeste **eginahal** eta saioren ostean, denborarekin nik ere bakea, lasaitasuna, arindura aurkitu nituela. Urtzi Urrutikoetxea

Urduri ari da mutikoa, izuak begietan dir-dir, astoa bide erditik baztertzeko **eginahal** irudiz debaldekoan. Xabier Montoia

3 *pl*

Sarriago, bertze beldur batek **eginahalak** bizkortzen dizkio: laztura hilgarri horretan, nahi du oraino gibelera egiten saiatu. Jon Muñoz

Abian diren **eginahalak** «disidente politiko eta giza eskubideen aldeko ekintzaile irandarrak» laguntzera bideratuta daudela. Berria - Mundua

Bushek terrorismoaz, Ekialde Hurbilaz eta abarrez informatzen duten txostenez egin duen erabilera ikertzeko batzordeko gutxiengo demokrataren **eginahalak** zapuztu ditu Gossek. Berria - Mundua

Ez dut bada ere aipatu nahi Ezako Dionisio, gizon sendo eta argia, haren arreba ezkondu baitzen ene osabarekin eta haren beraren leialtasunak, bertuteak eta **eginahalek** distiratu baitzuten comunero-ak deitzen ziren Gaztelako jazarleen aurka. Piarres Xarriton

Eginahalak saiatu ditut aitak esan zizkidanak albait zuzenen jasotzen. Anjel Lertxundi

4 (adizlagun gisa)

Bozak dituzte aste ondar huntan, Irakian, zenbait ilabete huntan eta **eginahala** prestatzen ari dituztenak amerikanoen laguntzarekin. Herria

Talde bakoitzaren indarra agertzen da hor, denek ildo bera segituz **eginahala**. Herria

Elgarren arteko kasailak **eginahala** baztertu nahiz zorren pagatzeko Aldudeko oihan komunean egurrak egiteko beren baimena eman zuten. Michel Oronoz

Hunen helburua zen Euskal Herri huntan **eginahala** lantegi eta lan postu sortzearen sustatzea eta bultzatzea. Herria

5 *eginahala egin*

Lau pilotariek **eginahala egin** dute eta partida bururatzerat zoalarik bi alderdiak elgarren bete ziren. Herria

Eginahala egin dutela diote, bainan ez dira heldu. **Eginahala egiten** nuen ez sinisteko. Herria

Eginahala egin nuen ez erreparatzeko zein altueratan eta atetik zer distantziatara. Juan Garzia

Baina hik **egin** dezakek **eginahala**. Herria

Manolo Arozenak eta Juan Mari Lopezek distira gutiko **eginahala egin** zuten. Berria - Kultura

· Paperik gabe dauden etorkinak laguntzeko **eginahala egiten** duten ehunka flandestarrei barkamena eskatzeko exijitzen diot ministro federalari. Berria - Mundua

Ikusteko **eginahala egin** nuen baina han irazki aski txikiko gizon bat baizik ez nuen ikusi, burges aberatsaren estiloan jantzia. Matías Múgica

Ximurraren arreta erakartzeko azken **eginahala egin** eta ahizparen ardurapean utzitako seme-alabez zerbait murmurikatu zuen. Aingeru Epaltza

6 *eginahalak egin*

Eginahalak eginez eseri zen ohean, eta betiko istorioa kontatzen hasi zen, betiko hitzak erabiliz. Ramon Saizarbitoria

6-2, **eginahalak egin** dituzte galtzaleek etsitu gabe eta sekulan ahuldu gabe. Herria

Eginahalak egiten ari zen ez nendin konturatu zenbateraino zegoen kezkatuta. Anjel Lertxundi

Eginahalak egin arren, alferrik jardun nuen. Anjel Lertxundi

Nahiz eta **eginahalak egin** doinu axolagabe eta arinari eusteko, konturatu nintzen ezin zuela beti hala izan. Oskar Arana

Bere legelari ikuspegiari nahiz jarraiki, **eginahalak** oro **egin** zituen Espainiako Inkisizioaren auzitegitik auziaren kentzeko eta Erromara eramateko. Piarres Xarriton

Alferrik **egin** nituen **eginahalak**. Joxe Austin Arrieta

Aresoarrek, ostera, **eginahalak egin** dituzte leitzarrengandik bereiztearren. Koldo Zuazo

Bizar-makina atera eta **eginahalak egin** nituen, hau da, egin-ezinak, zeren argindarrik gabe ez baitago tresna horrekin deus egiterik. Joxe Austin Arrieta

· Perfekzio puntu batera eramateko **eginahalak egiten** nituen. Matías Múgica

Egunero hura ikusteko **eginahalak egiten** zituzten. Elizen arteko biblia

Eginahal guztiak **egin** zituzten beren lanak argitaratzeko, beste batzuek beren lanak irakur eta uler zitzaten. Jon Muñoz

Eginahalak eta bi **egin** genituen hara-hona ibil ez zedin. Mirentxu Larrañaga

Maite genuen Felix, eta **eginahalak egin** ditugu geure buruari zoriontsu hil zela sinestarazten. Joxerra Garzia

Eginahalak eta bi **egin** arren -jo ez beste guztia-, hark ez zuen gure ipurdirik musukatu nahi. Anjel Lertxundi

Bata besteari iheska zebiltzan, eta zazpi **eginahalak egiten** zituzten ez elkarrekin topo egiteko. Elena Touyarou

Mundu irudikaezin eta arrotz batean bizi den haur baten barnera iristeko eta hari atxikitzeko gizagaindiko **eginahalak egin** arren, gerta daiteke iruditzea alfer-alferrik ari direla. Xabier Olarra

7 *eginahalean adlag*

Gezur-hautsa kentzen die hitzei **eginahalean**, eta atzera munduari itzultzen dizkio biziberriturik, eta munduak asko irabazten du orduan, ia dena. Iñaki Segurola

Eta hasi nintzen Komrover hura **eginahalean** konbentzitzen bide bat banekiela bera eta arreba ataka hartatik ateratzeko: aski zuten esatea Krapotkin gaztea arrebaren lagunetarik zela. Matías Múgica

Adierazten saiatzen naiz **eginahalean** ez dudala nik hizkuntza erabiltzen, eta are gutxiago menderatzen, ez ditudala hitzak neure eskuko, hizkuntzaz kanpoko gauzak esateko, baizik-eta haiek erabiltzen nautela ni eta menderatzen. Iñaki Segurola

Akatsak bilatzen nizkion, **eginahalean** narrioak bilatzen. Matías Múgica

Azkenean, indarrez, **eginahalean**, ulermenak bidea zabaldu zuen nire ariman, nire arrazoi dardartian kiskali zen. Koro Navarro

Zuen alde **eginahalean** otoitzean dihardu beti, tinko iraun dezazuen, Jainkoaren nahia betetzera erabat emanak. Elizen arteko biblia

Orduak eta egunak eman ditzaket konputagailu aurrean alferrikako **eginahalean**. Ramon Saizarbitoria

· Bilkura bilkuraren ondotik egiten dute batzuek eta besteek, petrolioaren gorabeherei, kutsaduraren ondorioei edo mundializazioaren kalteei ihardokitzeko **eginahalean**. Piarres Xarriton

Rick Wagoner General Motorsek presidenteak dio kostuak murrizteko **eginahalean** aurrerapausoak egiten ari dela Halako batean, aitak besoetatik oratu zidan, baina ez indarkeriaz, ni lasaitzeko **eginahalean** baizik. autoazterketa itogarri samarra ezarri nion (nahiz eta ez zen oso bestelakoa berak bere buruari egunero ezartzen zionaren aldean: autista ez den mundu batean autismoa nola bizi ulertzeko **eginahalean** aritzen baita beti). Berria - Ekonomia

8 *eginahaletan adlag* eginahalean.

Izan ere, **eginahaletan** ari da bat zorrotz eta arretaz lan egiten, emaitza onak lortzen, eta dena, inolako lanik egin ez duenari utzi behar. Elizen arteko biblia

Baina **eginahaletan** jarraitzen zutelarik, anaia haietako batek haserrealdia izan zuen beste anaia batekin eta han ari zen asmatzen nola salatuko eta mendekua nondik hartuko. Askoren artean

Ernerik aritzen ginen, besarkatzeko eta musukatzeko gure premia azkarrari atxikitzen **eginahaletan**. Xabier Montoia

· Zutitzeko **eginahaletan** ari dela, atzerantz bultzatzen dute, komunerantz. Oskar Arana

Ongieza ez erakusteko **eginahaletan**, inguruko mugidan finkatu nituen begiak. Aingeru Epaltza

Etzaulki batean zegoen eserita, bere lorategi karratu txiki dotorean, egunkaria irakurtzeko **eginahaletan**. Koro Navarro

Baina gizona deskubritzeko **eginahaletan** ari nintzela, banekien, seguru jakin ere, ez nuela aurkituko. Matías Múgica

Autogobernua sendotzeko **eginahaletan** funtsezkoa jo zuten zapatistek komunitateak eraberritzea. Berria - Mundua

9 *eginahal guztian*

Eginahal guztian saiatzen zen alegiazko errealitate hura xehetasun osoz azaltzen. Ander Irizar

Eginahal guztian egingo dizut men, andrea. Juan Garzia

Gidaria zaldiei jo eta jo ari zen **eginahal guztian** eta hitz zantarrez eta kolpez baino ez zuen lortzen lauoinka joan zitezen. Karlos Zabala

Baliteke savantek garunean sistema nabarmenki espezializatua izatea, neurri gabe garatutako sistema edo "neuromodulu" bat, eta une jakin batzuetan "piztuta" egotea -estimulu egokiak (musikala, ikusmenezkoa, edozein) sistema une egokian aurkitzen duenean- eta orduan berehala hastea **eginahal guztian** lanean. Xabier Olarra

Gero kaleetan barrena joan nintzen lasterka **eginahal guztian**.· Arineketan hasten da hanken **eginahal** guztian, galeperraren antzera. Pello Lizarralde

10 *egin berri (orobat* **eginberri** *g.er.) izond* egin berria dena.

Ama ordurako sukaldean zen, kafe **egin berriaren** usaina zetorren handik. Anjel Lertxundi

Haren etxeari, ardo **egin berriari** bezala, urteen zaporea falta zitzaion. Joan Mari Irigoien

Ez dakite zeinen arriskutsua den pastel goxo eta **egin berri** bat jatea. Julen Gabiria

Kafea xigorkiekin edo txokolatea txurro **egin berriekin** hartzera. Juan Martin Elexpuru

Mirentxu panpoxa-panpoxa azaldu zen, kruasan **egin berriekin**. Joxean Sagaztizabal

Litro bat esne -gaingabetua-, ogi **egin berria** eta lau croissant poltsa batean nekartzala. Aingeru Epaltza

Ogi kraskatsu **egin berri** digerigaitzak. Edorta Agirre

Eta Pedro ere, bere marrazki **egin berria** pintura zuri-marroiska batez beztitzen eta estaltzen zuela. Joan Mari Irigoien

Haien ordez oihal tornasolatuaz jantzi nuen koltxoia eta gainean edredoi **egin berria** jarri genuen. Jasone Osoro

· Orain, ostera, ganorabako izen asko ikusten dira etxe **egin berrietan**: *Gure kabi, Gure ametsa, Gure izerdia, Gure txoko, Toki alai, Zu ta Ni...*Adiskide **egin berri** bat,

miresten zaituen eta ezagutu berri duzun mutil bat. Koldo Zuazo

Begi ertzetik behatu du bidaiantaren soslaia, bizar **egin berria**, gorbata ongi lotua eta ile urez ongi orraztua. Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldetik eginahalak (3); **bere eginahal** (3); **eginahal eta** (7); **eginahal guztia** (5); **eginahal guztiak** (13); **eginahal guztiak egin** (7); **eginahal guztiak egingo** (3); **eginahal guztian** (18); **eginahal handia** (3); **eginahal horretan** (3); **eginahala egin** (7); **eginahala guztian** (4); **eginahalak egin** (42); **eginahalak egin arren** (6); **eginahalak egin behar** (6); **eginahalak egin nituen** (5); **eginahalak egin zituen** (6); **eginahalak eginda** (4); **eginahalak eginda ere** (3); **eginahalak eginen** (4); **eginahalak eginez** (9); **eginahalak egingo** (7); **eginahalak egingo dituela** (4); **eginahalak egiteko** (4); **eginahalak egiten** (33); **eginahalak egiten ari** (7); **eginahalak egiten ditu** (4); **eginahalak egiten zituen** (8); **eginahalak egiten zituzten** (4); **eginahalak eta** (19); **eginahalak eta bi** (17); **eginahalak oro** (5); **eginahalean ari** (3); **eginahalean egiten** (4); **eginahalean egiten duen** (4); **eginahaletan ari** (5); **eginahalik gabe** (3); **eta eginahal** (7); **eta eginahalak** (11); **eta eginahalak egin** (7); **eta eginahalean** (3); **hanken eginahal** (4); **hanken eginahal guztian** (4); **lortzeko eginahalak** (3); **ulertzeko eginahalean** (3); **zazpi eginahalak** (9); **zazpi eginahalak egin** (3)

---

eginarazi, eginaraz, eginarazten du *ad* egitera behartu. **1**

Egin, edo, hobeto esan, eragin, **eginarazi**, horretarakoxe propio ordaindutako morroiren bati, beltz bati. Joxerra Garzia

Ez zuen bere buruaz beste egin, bere buruaz beste **eginarazi** zioten. Berria - Harian

Ontziak **eginarazi** zituen Hidaspes ibaian, ibai horretatik jaitsi zen, Indoan sartu eta honen bokaleraino nabigatu zuen. Iñaki Iñurrieta

Ondoren, Jerusalemera jo eta hango harresietan berrehun metroko zuloa **eginarazi** zuen, Efraimen atetik kantoiko ateraino. Elizen arteko biblia

Anaien bizilekutik gertu, leku erretiratu batean, gelatxo bat **eginarazi** zuen, Frantzisko etortzean bertan otoitz egin ahal zezan. Askoren artean

Marfilezko errege-aulki bikain bat ere **eginarazi** zuen Salomonek eta urre garbiz jantzi. Elizen arteko biblia

Bakardadearen sentimentu jasanezinak kilometroak eta kilometroak **eginaraziko** baitzizkidan ohartu gabe ere. Piarres Aintziart

Arratsero, Uil behartu egiten nuen biderketa-taulak ikastera, eta diktaketak **eginarazten** nizkion. Juan Kruz Igerabide

Lasaitzeko ariketak **eginarazten** nizkien, eta anestesia psikologikoan pentsarazten nien. Berria - Gaiak

Amore ere ez zuen eman, horratik, niri berriketa **eginarazi** arte, hainbat gairi buruz: nabigazioa, radarra, lurbiraren kurbadura, elektrizitatea, entropia, azkeneko hau berak inoiz entzun gabeko gauza, nonbait. Joxe Austin Arrieta

Trebezia horrek gure mirespena sortu zuelako harroturik, norgehiagoka jarri ziren animaliei jauzi gero eta ikusgarriagoak **eginarazteko**. Ramon Saizarbitoria

Eder agertzeko halako premia bat sentitzen nuen amodioarekin onezkoak **eginarazi** zizkidana; ez amodioa zinez sentitzeko, bertzeri sorrarazteko eta haren itxurak egiteko baizik. Jon Muñoz

Nagusiak zin hau **eginarazi** zidan: [...]. Jose Antonio Mujika

Salatzen bagaituzu, libre geratuko gara **eginarazi** diguzun zinetik. Jose Antonio Mujika

Alferrik **eginaraziko** zitzaion hari ez edateko promesik: egun batzuen buruan hasiko zen berriro. Irene Aldasoro

Orso Nerok lan gehiegi **eginarazten** ziolako. Pello Lizarralde

Zinez, han **eginarazi** diguten bisitak loriatu gaitu, ez bainuen pentsatzen holakorik bazela oraindik. Herria

2 (aditzei dagozkienak)

Nik biziki maite dut irri egitea eta irri **eginaraztea**. Menane Oxandabaratz

Uztaro artebatzaren arduradun bezala, bide **eginarazi** dio elkarteari urteetan toki ezberdinetan eta ekitaldi hainbestetan. Herria

Ez utzi zeure ahoari bekatu **eginarazten**, ez esan gero Jainkoari ohartu gabe egin duzula. Elizen arteko biblia

Jeroboamen jokabide bera hartu duzu eta bekatu **eginarazi** diozu ene herri Israeli, bekatu horiez ni haserrearaziz. Elizen arteko biblia

-Formulei hitz **eginarazi**! -egin zuen oihu, adoreturik. Jon Muñoz

Ez da handitasunik Behe Inperioko legeetan; printzeei erretorikoen gisan hitz **eginarazten** zaie. Iñaki Iñurrieta

Gauean ez zieten afaltzeko ezer eman, eta lurrean edo lastairarik gabeko ohetan lo **eginarazi** zieten. Josu Zabaleta

Eta horrexek alde **eginarazi** zien. Anton Garikano

Txistu **eginaraziz** bota ohi zuen leihotik platera. Anton Garikano

Zalaparta hark itsaso handiren baten azal urdinak inguratu eta alde guztietatik isolatu zuela amets **eginarazten** zion. Karlos Zabala

Barre eragiten dizu, baina aldi berean, praketan kaka **eginarazteraino** beldurtzen zaitu. Oskar Arana

Uko egiten duena nahiz uko **eginarazten** zaiona ezin kexatuko dira, Estatuak legea egin baitzezakeen haiek ondorengotzatik kanpo uzteko. Iñaki Iñurrieta

Baina zerbaitek atzera **eginarazi** zidan, zalantza **eginarazi**. Mirentxu Larrañaga

Haurdun nengoenean bihotzak esaten zidan hasita nengoela oraindik aurpegirik ez zuen hura maitatzen; buruak, ezinezkoa zela oraindik ezagutzen ez nuen norbait maitatzea, are gutxiago oraindik izan ere ez zen norbait; eta hormonek negar **eginarazten** zidaten. Arantxa Iturbe

Goizeroko aharrausi nagi eta urratzailea da, hezurrak krask **eginarazten** dituen nagiak ateratze bukaezina, egun bat gehiago, egun bat gutxiago. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amets eginarazi (3); **asko eginarazi** (4); **atzera eginarazi** (14); **atzera eginarazi zion** (3); **barre eginarazi** (3); **bat eginarazi** (33); **bat eginarazi zion** (5); **bat eginarazi zuen** (8); **batzuk eginarazi** (4); **bekatu eginarazi** (4); **beste eginarazi** (4); **beste eginarazi zioten** (3); **bira eginarazi** (3); **buruaz beste eginarazi** (4); **edo eginarazi** (3); **edo etxerik eginarazi** (3)

eginarazi baitzion (3); **eginarazi behar** (7); **eginarazi beharko** (3); **eginarazi diguzun** (4); **eginarazi duen** (6); **eginarazi ere** (4); **eginarazi eta** (10); **eginarazi nahi** (15); **eginarazi nahi izan** (3); **eginarazi nahian** (3); **eginarazi nion** (7); **eginarazi ondoren** (4); **eginarazi zidan** (15); **eginarazi zien** (15); **eginarazi zieten** (7); **eginarazi zion** (44); **eginarazi zioten** (8); **eginarazi zituen** (20); **eginarazi zituen salomonek** (5); **eginarazi zizkion** (20); **eginarazi zizkion bekatuetatik** (10); **eginarazi zizkiotela** (3); **eginarazi zizkioten** (3); **eginarazi zuen** (30)

ere eginarazi (7); **ere eginarazi zuen** (3); **etxerik eginarazi** (3); **eztul eginarazi** (3); **flexioak eginarazi** (6); **gogoeta eginarazi** (3); **hau eginarazi** (5); **hitz eginarazi** (17); **hitz eginarazi nahi** (4); **hutsak eginarazi** (3); **irri eginarazi** (8); **irribarre eginarazi** (6); **irribarre eginarazi zion** (3); **israeli eginarazi** (13); **israeli eginarazi zizkion** (12); **jeroboamek israeli eginarazi** (10); **lan eginarazi** (3); **negar eginarazi** (8); **ugari eginarazi** (3); **zin eginarazi** (17); **zin eginarazi zidan** (3); **zin eginarazi zion** (7)

amets eginarazten (8); **ariketak eginarazten** (3); **atzera eginaraziko** (3); **atzera eginarazteko** (5); **barre eginaraziko** (3); **barre eginaraztea** (3); **barre eginarazten** (9); **bat eginarazten** (5); **dantza eginarazten** (3); **eginarazia zuen** (3); **eginarazten dien** (3); **eginarazten digu** (3); **eginarazten digun** (3); **eginarazten dio** (10); **eginarazten diote** (4); **eginarazten dit** (4); **eginarazten dizu** (3); **eginarazten du** (4); **eginarazten duen** (3); **eginarazten duena** (3); **eginarazten zidan** (4); **eginarazten zidaten** (3); **eginarazten zien** (9); **eginarazten zigun** (3); **eginarazten zion** (12); **eginarazten ziona** (3); **eginarazten zioten** (5); **gogoeta eginarazten** (4); **hitz eginaraztea** (3); **hitz eginarazteko** (5); **hitz eginarazten** (10); **hitz eginarazten zion** (3); **irri eginaraztea** (3); **irri eginarazteko** (4); **irri eginarazten** (9); **lan eginaraztea** (3); **lan eginarazteko** (3); **negar eginarazten** (6); **salto eginaraziz** (3)

---

eginarazle *iz* eginarazten duena; (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Xabier Olarraren itzulpenak frogatzen du euskaraz ere liburua interesekoa, dibertigarria eta barre-**eginarazlea** izan daitekeela. Berria - Kultura

Badu taldeak bere "leadera": mutil mehats, handi, irri-**eginarazlea**, begitartea beti serios haatik. Piarres Aintziart

Eta Kalakirri gaualdi umoretsua, Pantzo Hirigarai eta Beñat Bidegain irri-**eginarazle** bikote paregabearekin. Herria

---

eginbehar **1** *iz* egitekoa; betebeharra. ik **eginbide**.

Legerik ez, **eginbeharrik** ez. Jenaro Garate

Eginbeharrak: dinamizazioa, koordinazioa, dozierren jarraipena, diru bilketa. Kristauen **eginbeharra** omen! Jose Morales

Nire eginbeharra, desobeditzea. Xabier Olarra

Hortik ere Heraklito ilunak bere buruari jarri zion azken **eginbeharra** : "Neure giza espirituaren bila lehiatu nintzen". Askoren artean

Eginbeharretan oinarritutako teoria etikoak. Askoren artean

Sei egunez egingo duzu lan eta zeure **eginbehar** guztiak burutuko.

Hadesko ate-zakurra, **eginbehartzat** sarrera zaintzea zeukan. Xabier Olarra

Gureganako maitasunak eraginda, **eginbehar** hau hartu zuen bere gain: [...]. Patxi Ezkiaga

Ez al zen emaztearen **eginbeharra** esanekoa izatea eta, oinarrizko beharrizanak beterik, pozik egotea? Patxi Zubizarreta

Ezagutzen zutenek langile trebe eta azkartzat zeukaten, kementsu eta nolanahi etsitzen ez zuena laneko **eginbeharretan**. Xabier Olarra

Jesus Fernandez 61 urteko langileak bere **eginbeharretan** ziharduela, lantegian dauden labeetako bat lehertu egin zen. Berria - Ekonomia

Poesiaren **eginbeharretako** bat hitzak garbitzea, eleei zarata kentzea dela zioen behinola Bernardo Atxagak elkarrizketa batean. Iñigo Aranbarri

Alarguntsak semeak nahiz bilobak baditu, hauek ikasi behar dute lehenik beren etxekoenganako **eginbeharrak** betetzen eta gurasoei zor dietena itzultzen. Elizen arteko biblia

Bere **eginbeharra** bete duen aitak soilik hezi ahal ditu seme-alabak. Jose Morales

Neure buruari hilero haren hilobi aurrera joatea ezarri nion **eginbehartzat**. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Proiektua xumea zen arren, izenburu nabarmen eta apur bat arranditsua ematea erabaki nuen, neure buruari sinestarazteko **eginbehar** garrantzitsu batean sarturik nengoela. Lantegian zuten **eginbehar** eskerga zela eta, Liviak ezin izan zuen oporrik hartu eta udazkenerako utzi behar izan zituen. Oskar Arana

Bakoitzak, azkenik, zeinu adierazgarriaren hiru **eginbehar** osagarrietatik bat garatzen du: izendatzea, sailkatzea, trukatzea). Xabier Arregi

Herriko bizitzan ez zegoen objektu baliogaberik: guztiek zuten **eginbehar** garrantzitsu bat. Berria - Kultura

Berez jakingo baitu zein dituen **eginbeharrik** behinenak. Jose Morales

Bizi izandakoa eta behar idealak, gertaeren kontingentzia eta **eginbehar** formalen jokoa. Xabier Arregi

Banuen **eginbehar** premiazkoagorik. Aingeru Epaltza

Adiskidetasunezko **eginbehartzat** hartu nuen jaun haiei Guatemalako beren plantazioaren egoeraren berri jakinaraztea. Joxe Austin Arrieta

Nahitanahiezko **eginbeharra** da gurean bozkatzea. Xabier Olarra

- **Eginbeharra** , hori dun, premia larriko **eginbeharra** , beste guztia bazterrera utzarazten duena, gainerako denari uko egitera behartzen duena. Karlos Zabala

Lan bilera horretan eten bat egin zuten aurrera begirako **eginbeharrak** jendaurrean azaltzeko. Berria - Euskal Herria

Higanotaren eskuizkribuak zerbait deabruzkoa izan behar du zinez, Jainkoarekiko **eginbeharrak** ere ahantzarazi baitizkio. Aingeru Epaltza

Ez, egia duk, ezin baztertuzko **eginbeharrak** ditiat. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan)

Zitalaren zitalaz, batzuetan emakumeak seduzitzera saiatzen nintzen, zeren emakume haietako batzuk, beren mundu ikuskeraren ondoriozko **eginbehar** -zentzu batek bultzatuta, erraz entregatzen zitzaizkion gogaide bati. Matías Múgica

Gaur gazteak etorkizun bat du, **eginbehar** mordo batez betetako etorkizuna. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere eginbehar (10); **duen eginbehar** (3); **edozein eginbehar** (3); **eginbehar bakarra** (5); **eginbehar bat** (6); **eginbehar batzuk** (4); **eginbehar eta** (6); **eginbehar ezberdin** (3); **eginbehar guztiak** (9); **eginbehar hau** (4); **eginbehar honetan** (3); **eginbehar hori** (13); **eginbehar horiek** (3); **eginbehar horretan** (4); **eginbehar hura** (5); **eginbehar nagusi** (4); **eginbehar nagusia** (7); **eta eginbehar** (9); **gure eginbehar** (3); **zen eginbehar** (4); **zuten eginbehar** (5)

bere eginbeharra (28); **bere eginbeharra bete** (3); **beren eginbeharra** (5); **da gure eginbeharra** (5); **da nire eginbeharra** (4); **dagokion eginbeharra** (3); **duen eginbeharra** (5); **eginbeharra besterik** (3); **eginbeharra besterik ez** (3); **eginbeharra bete** (16); **eginbeharra betetzeko** (3); **eginbeharra da** (16); **eginbeharra dela** (5); **eginbeharra egin** (3); **eginbeharra eta** (9); **eginbeharra hori** (3); **eginbeharra izango** (6); **eginbeharra izango da** (5); **eginbeharra zen** (3); **eta bere eginbeharra** (3); **eta eginbeharra** (4); **euren eginbeharra** (4); **gobernuaren eginbeharra** (3); **gure eginbeharra** (14); **haren eginbeharra** (4); **honen eginbeharra** (4); **honen eginbeharra izango** (3); **lehen eginbeharra** (5); **nire eginbeharra** (22); **nire eginbeharra da** (3); **nire eginbeharra eta** (3); **zuen bere eginbeharra** (3); **zuen eginbeharra** (5); **zure eginbeharra** (5)

bere eginbeharrak (9); **bere eginbeharretako** (3); **bere eginbeharretako bat** (3); **beren eginbeharrak** (4); **beren eginbeharrak ez** (3); **eginbeharrak bete** (5); **eginbeharrak betetzen** (4); **eginbeharrak ere** (4); **eginbeharrak eta** (5); **eginbeharrak ez** (7); **eginbeharren artean** (3); **eginbeharretako bat** (7); **eginbeharretan oinarritutako** (5); **eginbeharretan oinarritutako teoria** (4); **eta eginbeharrak** (11); **gure eginbeharrak** (8); **nire eginbeharrak** (3); **zituen eginbeharrak** (3)

---

eginbehartxo *iz adkor* eginbehar xumea.

Etxeko kezkak dira, zahartzearen atsegina kentzen duten eguneroko **eginbehartxoak** . Josu Zabaleta

---

eginberri ik **egin 8**.

---

eginbide *(ETCn **4.273** agerraldi; cf **obligazio 5.348** agerraldi)* **1** *iz* lege, kargu, hitzarmen edo kideko batek egitera hertsatzen gaituen zera. ik **obligazio**.

Amodioaren gainetik **eginbidea** eta obedientzia. Xipri Arbelbide

Ezkon zaitez zeure anaiaren emaztearekin, eta bete koinatuari dagokion **eginbidea** , anaiari ondorengoa emateko. Elizen arteko biblia

Zeren irakasleen erranetarat jartzea baitzen ikaslearen obligazinoa eta **eginbidea** . Joan Mari Irigoien

Eta eskua baino gehiago, **eginbidea** azkenean! Herria

Estatu handien **eginbideak** nazio xumeei buruz. Piarres Xarriton

Erretore zin egilea paradaz baliatu zen han zirenei gogorazteko elizako **eginbideen** konplitzeko obligazioa zutela. Elena Touyarou

Hortxe zeuden, xingola papoan, frantsesez oihukatzen herritar guzien **eginbidea** zela aberriaren sostengatzea eta haren etsaien salatzea. Elena Touyarou

-Zuen etxera jin den jende hori guzia, zure **eginbidea** zen guri salatzea. Marzel Etxehandi

Katoliko on guzien **eginbidea** da igandeetan mezara joatea, meza ematen duen apeza gustukoa izan edo ez. Elena Touyarou

Ageriko legearen arabera, aldiz, dator gorputzeko, denborazko, ohorezko, funtsezko gaztiguaren jasateko **eginbidea** . Piarres Xarriton

Aita Sainduak erran zuen: "Sententzia emateko **eginbidea** dugu eta hemen idatzia den bezala erraten dugu" eta lau paper hosto harturik eman zizkion irakurtzeko auziko notarioari. Piarres Xarriton

Neure burua oso-osorik eskaintzen diot **eginbide** horri. Jon Muñoz

Aurrena **eginbidea** . Juan Garzia

Geuk jarriko dugu xanpaina -esan zuen ganberaburuak-; gure betebeharra da, gure **eginbidea** . Jose Morales

Elkarlan horren sustatzea hautetsi guzientzat **eginbidezkoa** dela jadanik eta oraino gehiago hala izanen ondoko urtetan. Herria

Erresistentzia **eginbidezkotzat** jo dute erlijioburu musulmanek. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Igandeari dohazkon **eginbide** premiatsuak. Xipri Arbelbide

Baina nigar kolektiboak, erasia bortitzen beldurrak, laudorio, lausengukeri eta apaltasunak, **eginbide** gogorrak, ideia bakun hetsiak... zer zen hori? Piarres Aintziart

Seminarioko **eginbide** zorrotzek bizia ateen aitzinean uzten ziguten. Piarres Aintziart

Norberari zegokiola bere Jainkoa hautatzea, biziaren maitatzea dela oinarrizko **eginbidea**. Piarres Aintziart

Hori hala da, bainan ez ditu horrek herriko arduradunak beren funtsezko **eginbidetik** baztertu behar. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Han nere apez **eginbidea** ahal nuen espiritualtasun handienean bete ondoren, jendeen bizian, haien lanetan sartu nintzen, loriaturik, hau edo hura eskulanetan lagunduz. Piarres Aintziart

Hadassen azpiko maindireak atera zituzten ezkontza **eginbideak** bete ote ziren ziurtatzeko. Koro Navarro

Bere andre eta ama **eginbideak** bete zituela bai halako beste bizi batean eta gero ezagutzen ez zuen edo ahantzia zuen libertate batek sesiturik utzi zuela uste gabean. Piarres Aintziart

1944 an, gerla ondoko berriz xutitze denborak baitziren, politika **eginbideak** besteen artean. Herria

4 (elkarketa kopulatiboetan)

Goazen beraz Estatuen edo/eta Nazioen eskubide-**eginbideen** auziaz edo Nazionalismoaz apur bat hausnartzera! Piarres Xarriton

5 eginbeharra.

Bestek esanaren sintesi bat saiatzea ere **eginbide** zaila da: elemenia gauza esan eta idatzi da, eta askotariko, gehiegitarikoak apika. Juan Garzia

Berehala konturatu nintzen eskuzabala zela, sotila, **eginbidean** aspergaitza, adoretsua, harropuzkeria puntua eta guzti. Juan Garzia

Behin-behineko askatasunaz bazen ere, libre irten zen, hilketen gaineko **eginbideak** iraun bitartean astelehenetan eta ostegunetan epailearen aurretik pasatzeko baldintzapean. Migel Angel Mintegi

Gauza berriak egiteko gaitasunak berak ere -orijinaltasunak eta, oro har, jenialtasunak- ez zeukan harremanik munduko **eginbide** arruntekin. Bernardo Atxaga

6 zuzenbidean eta, diligentzia edo zuzemena.

75/89 **eginbideetako** ehun mila orriak aztertzeko astirik ez dutela izan argudiatu dute abokatuek. Berria - Euskal Herria

Aipatu beharra dago sumarioak 75/89 **eginbideei** erreferentzia egiten diela. Berria - Euskal Herria

Pasaiako segadaren polizi arduradunak epaitegira deklaratzera deitzea espero dute akusazioko abokatuek, Gipuzkoako Auzitegiak **eginbideen** artxibatzea bertan behera utzi eta ikerketarekin jarraitzea agindu ondoren. Berria - Harian

Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Fernando Grande-Marlaskak prozedura laburtu bihurtu ditu Soziedad Alkoholika musika taldearen aurka abiaturiko **eginbideak**. Berria - Kultura

Aurreko bi egunetan bezala, orain arte sekretu izan diren **eginbideek** ez dute datu zehatzik ematen akusazio horri eusteko. Berria - Euskal Herria

Hain zuzen ere, kasu honetan diligentziarik egin bada, akusazioko abokatuak eskatuta egin dira, epaileak eta fiskalak ez baitute ofiziozko **eginbiderik** eskatu edo bideratu. Berria - Euskal Herria

7 ***eginbide izan*** du *ad* obligazioa izan.

Badakizu gure Jainko Jaunak hainbeste jakitate talentu eman dizkizunaz geroz, **eginbide duzula** horietaz baliatzea, ez bakarrik zuretzat baina beste anitzentzat. Piarres Xarriton

Gure burasoen belaunaldia ezagutu dugunok, ihardets geniezaioke haren galdeari: zeren eta, erran baitzitzaien, euskaldun gazte haiei, **eginbide zutela** etsaien kontra Frantziaren defendatzea eta haiek sinetsi baitzuten. Piarres Xarriton

Ez da dudarik **eginbide duela** gobernuak herritarren alde bermatzea eta gaixtakinak gaizki egitetik zaintzea. Herria

-Hemendik menturatzen denak bide neketsua du, eta kristau onek lagun hurkoaren laguntzea **eginbide dute** -aldarrikatu zuen senarrak. Elena Touyarou

Horien alderat **badugu eginbide**, lekukotasun argi eta garbi baten eginbidea. Aitaren manua **diat** obligantza eta **eginbide**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere eginbide (4); **bere eginbidea** (18); **bere eginbidea betetzen** (3); **beren eginbidea** (8); **beren eginbidea bete** (4); **buruzko eginbideak** (4); **du bere eginbidea** (3); **eginbide bat** (4); **eginbide eta** (4); **eginbide horiek** (4); **eginbide horretan** (4); **eginbidea bete** (15); **eginbidea bete duela** (3); **eginbidea betetzen** (5); **eginbidea da** (3); **eginbidea dela** (6); **eginbidea ez** (4); **eginbidea izanen** (3); **eginbidea zen** (6); **eginbideak bete** (4); **eginbideak sekretupean** (4); **eginbideetan jasota** (3); **ene eginbidea** (7); **eta eginbide** (6); **eta eginbidea** (3); **gure eginbidea** (14); **gure eginbidea dela** (3); **gure eginbidearen** (3); **guzien eginbidea** (5); **kontrako eginbide** (3); **kontrako eginbideak** (3); **lehen eginbidea** (3); **zabaldutako eginbideetan** (3); **zen eginbide** (3); **zer eginbide** (4); **zuen eginbidea** (4); **zure eginbidea** (4)

---

eginbidetsu *izond* artatsua.

Erran dezagun aita familiako on eta **eginbidetsu** baten orroitzapena uzten daukula. Herria

Bi haurren ama, uzten dauku emazte sineste haundiko, goxo, **eginbidetsu** eta langile suhar baten orroitzapena. Herria

---

eginezin *izond* ezin egin dena.

Bestaldeko barbaroekin trukerik ezaren politika **eginezina** da. Iñaki Mendiguren

---

eingabe *izond* eginik ez dagoena.

Gaztea ez da gaur gixaki zoro **eingabea** eta axolagabea, edo hagitz gutxi dira behintzat klase eder horretakoak. Iñaki Segurola

Aldean nituen lagunak guztiz igarota zeuden egunaren nekea zela medio: zarpail samarrak gehienak, arropa hitsak eta bizar **eingabeak**, ilea muskilduta. Javi Cillero

Eta hain zen dena berri eta **eingabe**, non ahaztu beharrekoaren muga ordu erdi lehenago ezar zezakeen, undergorund geltoki hartan, eskaileretatik beherantz zihoan tunel beltz hartan. Joxemari Iturralde

Honek bere burua askatzeko emango dio bide Jainkoagandik nahiz lurkariengandik, egindakoetatik eta **eingabekoetatik** etor lekizkiokeen oinaze eta estuasunetatik. Joan Mari Lekuona

---

eingai *(orobat **eingei**)* **1** *iz* egitekoa.

Bainan harek hor zauzkan bestalde, konduaren gaineko, bere bihotzeko kar batek manatuzko **eingaiak**: hots, euskara, zein diren gure arbasoen erroak eta historia, eta gure nortasunari doazkon guziak. Herria

Pastoral hau eskolako **eingai** batean sartuta, gure haurren begietan distira piztea genuen helburu. Berria - Kultura

2 zerbait egina dagoen gaia.

Aurkitzen ditudan paisaiak, iragarkidun etxeak, posterrak, errege bat bezala iragaiten ditudan erakusleihoak, liburu honetako izaerak diren **eingai** berekoak dira denak. Iñaki Zabaleta

Nire ahoa eta mihia begi nabar baten betileetan okupaturik daudenean aurkitzen ditudan ikuspenak diren **eingai** berekoak, eta ikuspen horietan berrezagutzen dut nire haurtzaroko tunel-zaletasunaren errepika. Iñaki Zabaleta

---

eingaitz *izond* egiten zaila.

Ideala, ordea, adibide batean, h[au] d[a], agerpenean egikaritu nahi izatea **eingaitza** da, jakintsua eleberri batean errealizatzea ere **eingaitza** den bezala, eta gainera,

zerbait absurdua eta onbide gutxi duena da bere baitan. dagoeneko guztiok dakigu -besteak beste, eta inor gutxiesteko asmorik gabe- Lopez de Arriortuaren automobil-prototipo **egingaitza** Gran Via zinema zaharrean gordetzen dutela. Ibon Uribarri

---

egingaiztasun *iz* egingaitza denaren nolakotasuna.

Baina hobe litzateke pentsamendu honi jarraitzea eta ahalegin berrien bitartez bera argitara ekartzea (gizon bikainak laguntzarik gabe uzten gaituenean), **egingaiztasunaren** aitzakia eskas eta kaltegarriaren bidez erabilgaitz gisa alde batera uztea baino. Ibon Uribarri

---

egingarri 1 *izond* egin daitekeena, egiteko modukoa.

Teknologiak garraiorako erraztasunak eman zitzakeen, eta ematen zituen neurrian, mundu-mailako gobernua oso proposamen **egingarria** zen jada. Iñaki Mendiguren

Asmo handiko helburu **egingarriak** .1860 inguruan **egingarri** bilakatu zen bat-bateko argazkiari esker. Josu Zabaleta

Egingarri , eta are baliagarri ere, iruditu zaigu. Josu Zabaleta

Nik, gaur eta hemen, Bestelako Komunikazioa **egingarria** eta bideragarria dela frogatu nahi dut. Txema Ramirez de la Piscina

Ezaguera honetako batasun beteginak baldintzatugabeko osotasun hori **egingarria** ez ezik, beharrezkoa ere bihurtzen du. Ibon Uribarri

Hori **egingarria** al da, legearen aldetik? Berria - Mundua

Egingarri den oro egitea ez dela zilegi gogorarazten du zientzia horrek. Berria - Gaiak

Uste dut gizarte elebidun bat [...] edo hiru elekoa nahi bada, anitzez ere hurbilagoa dela, eta **egingarriago** , gaztelania atzendurik euskara eta ingelesa erabiliko dituen gizarte bat baino. Pello Salaburu

Etorkizuneko plan asko egiten ditu, baina ekin orduko bertan behera uzten ditu **egingarriago** diruditen beste batzuei ekiteko. Xabier Olarra

Xedea transformazio diseinatua da; egiten diren gauzak egiten dira hein handi batean **egingarriak** (bideragarriak) direlako. Berria - Gaiak

2 (adizlagunekin)

Esperimentu-animalietan eroso gertatzen den perlesia kimikoa ez da inolaz ere **egingarria** gizakietan. Irene Aldasoro

Langileek beren askatasun pertsonalean horrelako inbasioen aurka zuten ezinbesteko erresistentziak teknologikoki **egingarri** zenaren aurkako militantzia ekarri behar zuen. Iñaki Mendiguren

Iraganean hori ez zen beti **egingarria** izaten, sektore honetako adar handi gehienak estatuaren monopolio zirelako. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Erraiten ahal bada gerla bat bertze bat baino itsusiagoa eta ahalge **egingarriagoa** dela, ez ote dea hori, erlisioneen arteko gerla? Michel Oronoz

Egun batez hemen azaldu, eta zapla eraukiko zizkidan, ezagutzen ninduten guztien aurrean ahal bazen, bere izena, bere titulua eta bere ondasun amets-**egingarri** guztiak. Matías Múgica

Karikaturak dira, baina mamuak dira; batzuk irri-**egingarriak** dira, denak dira izugarriak. Koldo Izagirre

-Biziki irri **egingarria** zara Amaia. Itxaro Borda

Han ere elgarren arteko herra Ez ote da nigar **egingarri** ... Marzel Etxehandi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da egingarria (3); **egingarria dela** (5); **egingarria den** (5); **egingarriagoa da** (3); **egingarriak dira** (3); **eta egingarria** (5); **hori egingarria** (3); **irri egingarriak** (3); **proiektu egingarria** (3)

---

egingarritasun *iz* egingarria denaren nolakotasuna.

Auzapezaren erabakiaren ondorioz, antolatzaileek zalantzan ezartzen dute aurtengo festibalaren **egingarritasuna** . Berria - Kultura

Agintari politikoek xedearen **egingarritasuna** aztertzeko beste ikerketa bat eskatu zuten. Berria - Harian

Kontseilu Nagusiak bidearen **egingarritasuna** aztertzeko ikerketaren bigarren fasea onartzea bozkatu zuen. Berria - Euskal Herria

Teknikarien ikerketan oinarrituta, Jean Jacques Lasserre Kontseilu Nagusiko presidenteak bi lerrotako errepidearen **egingarritasuna** aztertzea aurkeztu du kontseiluan. Berria - Euskal Herria

Kontseilu Nagusiak **egingarritasun** ikerketa abiatu zuen. Berria - Euskal Herria

Elordoin **egingarritasun** ikerketak abiatzeko baimena eskatu zion Prefetari. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egingarritasuna aztertzeko (4)

---

egingei ik **egingai**.

---

egingura *iz* eginahia.

Lehengo gorri hura zuritu egin da kolpera, biluziak jantzi, gustuko xokoño eta toki sakratuenak -nere barne produktu gordinenaren jomuga izanak- aldapa latz bilakatu, eta haietan obratzen ziren eginkizun eta **egingurak** ere ezinkizun beltz dira orain, Erabakiaren bortxaz. Iñaki Segurola

---

eginkara *iz* egingarria.

Eginkara izango zelakoan, ustez, brintxea eman nahi genion gure hizkuntzari. Pello Salaburu

---

eginkari 1 *iz pl* obramenduak.

Hainbat tokitan komunik ere ez zuten langileek, eta, ondorioz, karrikara atera behar izaten zuten **eginkariak** egitera. Urik ez genuela erabiliko eta komuneko kateari ez geniola tira egingo erabaki genuen, baina zalaparta hark erraiak nahastu zizkigunez, pentsatzen ahal duzu nolako kiratsa zegoen komunean bata bestearen ondoren gure **eginkariak** egitera joan ginenean. Berria - Euskal Herria

Bere **eginkariak** alde guztietan uzten dituen katakume bat izan duenak badaki zer eratako urrinak izaten diren etxean piperbeltzaren eta ezkaiaren usainaz gainera. Josu Zabaleta

Londresen kontatu nion aitona nerabe nintzela hil zitzaidala, burutik nahastuta jada, eta bere **eginkariak** gainean egiten zituelako nazka ematen zidala. Ramon Saizarbitoria

Bi operazio edo **eginkari** horiek elkarren ahaide txit hurbilak direlakoan nago, biak ere libratze bat diren aldetik. Iñaki Segurola

2 ik **egikari**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere eginkariak (5)

eginkizun 1 *iz* egitekoa, zeregina.

Eginkizun bakoitzak bere garaia. Elizen arteko biblia

Eginkizun bakoitzak bere tokia. Elizen arteko biblia

Gizatasuna historiaren obra da eta historiaren **eginkizuna** da oraindik. Joxe Azurmendi

Kontratuei buruzko legedia egitea ez da geure **eginkizuna**. Berria - Ekonomia

Kapitulu honetan arteak irudian duen **eginkizuna** azaldu nahi zen. Josu Zabaleta

Lan ardatzak, ardurak eta **eginkizunak** finkatu nahi dituzte alorrez alor. Berria - Euskal Herria

Hezkuntzaren **eginkizuna** ez dagokio soilik eskolari. Berria - Euskal Herria

Epeak eta **eginkizunak** zehaztu behar direla dio. Berria - Euskal Herria

Zer **eginkizun** izan beharko luke? Berria - Euskal Herria

Badituzte beren **eginkizunak**, Kleimanek bere osasuna, Bepek bere ezkongai harremana, erraza eta gutxiagorik ere ez dena, eta ardura horiez gainera badituzte beren irtenaldiak, beren bisitak, jende normalaren bizitza. Josu Zabaleta

Gorespen-kantuak zuzentzeko **eginkizuna** zuten. Elizen arteko biblia

Kantarien eguneroko **eginkizuna** erregearen araudiak eta beste arau batzuek taxutzen zuten. Elizen arteko biblia

Halako geneen **eginkizuna**, hain zuzen, eredu-moduluaren garapena gobernatzen duen arau sailean eragitea da. Juan Garzia

-Ale, jarraitu zure **eginkizunekin**. Juan Martin Elexpuru

Vinod gaztea hartu zuten zerbitzari, otorduak prestatzeko, bazterrak garbitzeko eta etxeko beste **eginkizunak** egiteko. Gotzon Garate

Apaizak ezin izan ziren zutik egon beren **eginkizuna** betetzen, laino hura zela-eta. Elizen arteko biblia

Arautu eta erraz ikasteko moduan jarri zen eredua: Larramendiren gramatikak (1729) eta hiztegiak (1745), eta Kardaberazen *Euskeraren berri onak* saioak (1761) bete zuten **eginkizuna**. Koldo Zuazo

Madarikatua Jaunak emandako **eginkizuna** betetzen nagia! Elizen arteko biblia

Laburpen hau burutzeko **eginkizuna** hartu dugunontzat ez da izan, ez, lan erraza. Elizen arteko biblia

Jainkoak bere mezua zuei oso-osorik eramateko **eginkizuna** eman baitit. Elizen arteko biblia

Huts egin genuen **eginkizun** horretan. Josu Zabaleta

Ez dio **eginkizunik** ikusten alderdien arteko mahaian. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lau **eginkizun** nagusi ditu garun-enborrak. Handik berehala, elkarri sendo loturik geratzen dira hezurrak, garuna blindatzeko **eginkizun** berriari erantzuteko. Irene Aldasoro

Sinapsiak, adibidez, ez dira errele soilak; **eginkizun** eraginkorra dute, "kitzikatzaile" baitira batzuk, eta "inhibitzaile" besteak. Josu Zabaleta

Ez zuen argitu nor izanen den IPEren presidentea, ez ibilmoldea ez **eginkizun** zehatzak. Berria - Euskal Herria

Eginkizun garrantzitsu asko burutzen ditu gibelak. Irene Aldasoro

Itun horrek **eginkizun** erabakigarria izan zuen nazio-ekonomien barne-oztopoak ezabatzeko. Koro Navarro

Eginkizun bereziko lebitarrak. **Eginkizun** sakratuetan jarduten dutenek tenplua izaten dutela mantenubide. Elizen arteko biblia

EAEko Auzitegi Nagusiko lehendakari berria prest dago Eusko Jaurlaritzarekin «harreman leialak» izateko, betiere Aginte Judizialaren **eginkizun** konstituzionalaren barruan. Berria - Euskal Herria

Adituek musika eskolen **eginkizun** pedagogikoa aztertuko dute Bilbon apirilean. Berria - Kultura

Internet berehalakoa eta parte-hartzailea izango da, eta paperak bere **eginkizun** espezifikoa izango du. Berria - Gaiak

Etxekoandrearen eguneroko **eginkizunaz**. Edorta Agirre

Beste hainbat eremutan bete beharreko **eginkizunak** inposatzen zaizkie eta, teorian behintzat, neurri zuzentzaileak hartzen dira arauak betetzen ez dituztenekin. Berria - Euskal Herria

Erretorikazko **eginkizunak**: markoa ia autonomoa den "diskurtso bat adierazten duen" zerbait bezala har daiteke. Josu Zabaleta

Deitu zaitut zeure izenez eta ohorezko **eginkizuna** ezarri, ezagutzen ez nauzun arren. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Michel de Virvillek proposatutako **eginkizun** kontratua salatu zuen atzo LABek. Egitura bereziko ehuna da, erreakzio kimiko espezializatu ugari dituena, eta funtsezko **eginkizun**-zerrenda luze bat. Berria - Ekonomia

Segurtasun kontuak eta **eginkizun** gaiak hizpide izan dituzte atzo New Yorken Paul Bremer eta Kofi Annanek. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **eginkizun** nagusia, eta horregatik zorion beterako biderik egokiena, teoria litzateke, Jainkoaren ikuspuntutik unibertsoa ikusten saiatzea. Askoren artean

Tomentzat eta Honeyrentzat neskatoa galtzea gogorra izan zen arren, guraso-**eginkizunean** izan zuten esperientzia labur hark gogatu egin zituen umeak izatera. Oskar Arana

Jauntxoak andreari leporatu omen zion alabaren desohorearen hobena, bai eta akusatu, gisala, ama eta andre **eginkizunak** ez konplitu izana. Elena Touyarou

Gobernuen *raison d'être* positiboa gizarte-**eginkizun** komunei gidaritza politiko zentrala ematea izaten da. Iñaki Mendiguren

Gogoeta bat nire idazle **eginkizunaz**. Berria - Kultura

Gizartean argazkiak dokumentu-**eginkizuna** izatea. Josu Zabaleta

Zuzendaritzari atxikitako langileak gero eta baztertuagoak daude lantokian, eta haien lana zerbitzu-**eginkizunaren** sistemaren bidez hautatutako langileak egiten ari dira. Berria - Euskal Herria

Margolari klasikoek sentiberatasun handia izan dute beti bitartekaritza-**eginkizun** horretarako. Josu Zabaleta

Arte abstraktuaz geroztiko pinturaren teoria guztiek, zinema "abstraktuaren", "pinturazkoaren" teoria guztiek nabarmendu dute kolorearen adierazgarritasun-**eginkizuna**. Josu Zabaleta

Karikaturak aurpegiko osagai aldagaitzak hartzen ditu, lehenagotik sumatu gabe genituenak agian, baina, hala ere, ezagutzarako aztarren-**eginkizuna** bete dezaketenak. Josu Zabaleta

Eleazarrek eta Itamarrek hartu zituzten apaiz-**eginkizunak**. Elizen arteko biblia

Jeroboamek eta beronen semeek galarazi egin baitzieten Jaunarekiko apaiz-**eginkizuna** betetzea. Elizen arteko biblia

Irudikapen- eta narrazio-**eginkizunak**: [...]. Josu Zabaleta

5 *eginkizun egon*

Irudiaren erretorika **eginkizun** dago, beraz, gehienean. Josu Zabaleta

Puntu horretan ez pentsa, hala ere, dena eginik dagoenik: aitzitik, lan gehiago dago **eginkizun**. Juan Garzia

6 *eginkizun izan* du *ad*

Euskal naziogintzaren helburu nagusia dute **eginkizun**: euskarazko herria, euskal herria. irakurleak ulermenerako bidean kodeen erraietan sartu eta deseraikitzea izango du **eginkizun**. Berria - Euskal Herria

Gure aurreko ikertzaileek argitu ez dituzten puntuak jorratzea dugu **eginkizun** historialariok. Berria - Kultura

· Auzipetuen defentsa antolatzea» du lehenengo **eginkizun** elkarteak. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere eginkizun (13); **beren eginkizun** (5); **beste eginkizun** (16); **beste eginkizun bat** (4); **bi eginkizun** (10); **bi eginkizun nagusi** (4); **da eginkizun** (7); **du eginkizun** (13); **du eginkizun hori** (5); **duen eginkizun** (4); **dute eginkizun** (5); **duten eginkizun** (4); **edo eginkizun** (4); **eginkizun asko** (4); **eginkizun bakarra** (10); **eginkizun bat** (17); **eginkizun baten** (4); **eginkizun batzuk** (5); **eginkizun bera** (4); **eginkizun erabakigarria** (10); **eginkizun eta** (9); **eginkizun garrantzitsu** (4); **eginkizun garrantzitsua** (17); **eginkizun garrantzitsua betetzen** (4); **eginkizun guztiak** (13); **eginkizun guztietan** (11); **eginkizun handia** (4); **eginkizun handiak** (4); **eginkizun hau** (10); **eginkizun hauek** (7); **eginkizun historikoa** (5); **eginkizun honen** (4); **eginkizun honetan** (7); **eginkizun hori** (47); **eginkizun horiek** (5); **eginkizun horren** (4); **eginkizun horretan** (23); **eginkizun horretarako** (12); **eginkizun horri** (5); **eginkizun izan** (5); **eginkizun nagusi** (8); **eginkizun nagusia** (22); **eginkizun nagusiak** (5); **eginkizun zaila** (4); **eginkizun zehatzak** (4); **ere eginkizun** (4); **eta eginkizun** (29); **gure eginkizun** (4); **hain eginkizun** (4); **hainbat eginkizun** (5); **haren eginkizun** (6); **nire eginkizun** (6); **oso eginkizun** (9); **zein eginkizun** (11); **zer eginkizun** (13); **zeuen eginkizun** (6); **zeuen eginkizun guztietan** (5); **zuen eginkizun** (7); **zuten eginkizun** (4)

apaiz eginkizuna (4); **bere eginkizuna** (38); **bere eginkizuna bete** (7); **bere eginkizuna betetzen** (4); **beren eginkizuna** (21); **bigarren mailako eginkizuna** (4); **den eginkizuna** (4); **du eginkizuna** (4); **duen eginkizuna** (11); **duten eginkizuna** (4); **eginkizuna bere** (4); **eginkizuna bete** (15); **eginkizuna betetzen** (24); **eginkizuna betetzen du** (7); **eginkizuna da** (20); **eginkizuna du** (4); **eginkizuna dute** (4); **eginkizuna eman** (10); **eginkizuna eta** (9); **eginkizuna ez** (16); **eginkizuna ez da** (5); **eginkizuna hartu** (4); **eginkizuna izan** (6); **eginkizuna izango** (6); **eginkizuna izango da** (4); **eginkizuna zela** (4); **eginkizuna zen** (5); **eta bere eginkizuna** (5); **eta eginkizuna** (7); **funtsezko eginkizuna** (5); **gizakiaren eginkizuna** (4); **gure eginkizuna** (17); **haren eginkizuna** (8); **horien eginkizuna** (5); **ikuslearen eginkizuna** (5); **lehen eginkizuna** (9); **lehenengo eginkizuna** (4); **mailako eginkizuna** (4); **nire eginkizuna** (15); **zaintzeko eginkizuna** (6); **zuen eginkizuna** (6); **zure eginkizuna** (5)

bere eginkizunak (11); **bere eginkizunean** (9); **bere eginkizunetan** (5); **bere eginkizunetara** (4); **beren eginkizunak** (5); **beren eginkizunetan** (4); **beste eginkizunik** (10); **dituen eginkizunak** (5); **eginkizunak bete** (4); **eginkizunak betetzeko** (4); **eginkizunak betetzen** (7); **eginkizunak eta** (7); **eginkizunak ez** (4); **eginkizunen artean** (6); **eginkizunen bat** (7); **eginkizunetako bat** (9); **eginkizunik ez** (5); **eta eginkizunak** (11)

---

eginkor **1** *izond* eraginkorra.

Abstrakziorako (duen) ezintasuna dela eta, L.k ezin ditu garatu bere dohainak modu **eginkor** eta sortzailean... Xabier Olarra

GARAT eta bere lagun kideeri beren lan eta zaletasun **eginkorra** gatik. Herria

Halakoetan, lanean ari den kirurgialari batena du identitate osoa, eta antolaketa psikiko eta neural osoa horren arabera moldatzen da haren baitan: **eginkor**, zentratu, eroso, ez-tourettiko bihurtzen da. Xabier Olarra

2 (izenondo gisa)

Nola edo hala bere salbamenak **eginkor** iraungo duela sekulatan, guk asmatu ezin dugun maneran. Herria

---

eginkortasun *iz* eginkorra denaren nolakotasuna.

Eta han, ohorez eta aintzaz koroatua eta ikatz gorien artean kokatua, **eginkortasunez** arduratzen da Jainkoaren tronuaren aurrean lurrean utzi dituenen arazoez. Askoren artean

Gizakiak **eginkortasunez** isla ditzake bere ariman Jainkoaren atributuak. Joan Mari Lekuona

---

eginkunde *iz* egintza.

Gure mendea leheneko arbasoen bizimoldetarik urruntzen, eta aldiz ohitura eta **eginkunde** arrotzak, nunbaitikakoak, jabetzen gure bazterrez. Xipri Arbelbide

---

eginmolde *iz ipar* egiteko moldea.

Kanbiatu denborak ta **eginmoldeak**. Herria

Gobernuaren **eginmoldea** kritikatzen hasi ziren eragileak. Berria - Euskal Herria

Niri dagokidanez, barneko **eginmoldea** duen baten aztarnak ditut bilatzen argazkilari bakoitzean. Berria - Kultura

Xarlex Videgain euskararentzat, Lukian Kergoat bretoinerarentzat, Martine Berthelot katalanerarentzat eta Patrick Sauzet okzitanerarentzat altxatzen dira **eginmolde** hits horren kontra. Herria

---

egintxe *adlag* egina-edo.

Uztaileko konduak **egintxeak** dira hor gaindi. Herria

Uztailekokonduak **egintxeak** dira hor gaindi. Herria

Uste genuen batzuek euskara ikasirik, telebista indarrean jarririk, eta garai hartan sortzen ari zinetenak euskal eskoletara bidaltzeko erabakia harturik, gainerakoa, euskararen etorkizuna, **egintxe** zela. Pello Salaburu

Garai hartan, gure sentipena balio aniztuna zen, aurpegi eta desira anitzekoa: alde batetik uste baikenuen urte batzuen buruan euskararen kontua [...] **egintxe** izango zela, baina bestetik eta aldi berean egoera hori aski urrun ikusten baikenuen zinez eta benetan. Pello Salaburu

---

egintza **1** *iz* egitea. ik **ekintza; egiteko**.

Jonatanen **egintzak**. Elizen arteko biblia

Kontaketa ez da **egintza** bezain atsegina izanen. Jon Muñoz

Denbora askoren buruan baizik ez nuen ulertu hitzak **egintzak** baino indartsuagoak direla. Matías Múgica

Pertsona aluaren **egintza** alukeria da, jakina. Iñaki Segurola

Saiatu naiz Frantziskoren bizitzako datuak biltzen, haren bertute, **egintza** eta esanak, zatika bada ere. Askoren artean

Arima arrazoiduna gorputz fisiko, organikoaren **egintza** da, bizitzeko ahala duena. Piarres Xarriton

Ikasten diagu gertaeren eta gizakiaren **egintzen** zentzua zein den. Xabier Olarra

Haren **egintzetan** ageri den egia. Imanol Unzurrunzaga

Irizpide horrek oso bereizkuntza baliagarria egiten du -gehiegizkoa ere bai, agian- argazkigilearen **egintzaren** eta ikuslearen **egintzaren** artean. Josu Zabaleta

Erromatarren artean ohitura zen, garrantzi handiko **egintza** edo eginbehar bati ekin aurretik, augur edo estatuaren igarleengandik arrastoren bat lortzea. Xabier Olarra

Jainkoari (gorets bedi!) egozten zaizkion **egintzak** ezagutzera. Xabier Kintana

[Jainkoak] ez du organorik, erran nahi baita ez dela gorputz bat, eta haren **egintzak** soilki haren esentziaz burutzen dira, eta ez ezein organoren bitartez. Xabier Kintana

Irudimenaren **egintza** honek zoritxarreko inspirazioa izan zuen. Iñaki Mendiguren

Ahalmen bat **egintza** bilakatzen zen, ez al zen horixe Aristotelesek bilatzen zuena? Juan Garzia

Argi dago, zigorra ez litzatekeela zuzena izango, **egintza** horiek nahita eginak ez balira. Imanol Unzurrunzaga

Frantziskoren eta lehen anaien **egintzak** kontatzen ditu. Askoren artean

Egintza hori burutzeak gizon multzo handi bati ekarriko dion abantaila handia kontuan hartuz. Xabier Kintana

Salatzeko titulua dakarren **egintza** baino aurreragokoa izan behar du legeak. Andres Urrutia

Erregistroa, kasurako, bada ogasun zein herritarren onura eskuratzeko moduko erakundea: kontratuen eta norbanakoen arteko **egintzen** zinezkotasunari buruzko fede ematen du. Andres Urrutia

Egintza horiek ukatuko dituzu, edo desenkusatzera entseiatuko zara? Jon Muñoz

Fisikaren zientzia horien berri ez duenak ez dakizkike "grinetan" dautzan akatsak eta ez du ulertuko "potentzian" izatea" eta **"egintzan** izatea" zertzuk diren, ez eta "gabetasuna" berez datxekiola potentzian den guztiari, eta berau beherago dagoela "potentzia" hori **"egintza"** izatera iragan dadin mugitzen dena baino. Xabier Kintana

Jadanik azaldua da adimendu ororen esentzia osatzen duen **egintza** adimendun izatean datzala. Xabier Kintana

Hori "ahalean" dagoenaren eta **"egintzan"** ageri denaren artean bereizten ez dakienaren burubidea da. handik ordu batzuetara **egintzen** besterikgabetasuna erdietsiko zuen. Xabier Kintana

Apostoluen **Egintzetan** jasotzen den bezala. Iñaki Mendiguren

Egiarik ez da omen, **egintza** itsuka dabil eta teknikak bere logikari eta eraginari obeditzen dio. Piarres Aintziart

Juan Mari zor-zor eta hortzak zorrozten zegoen, **egintzara** pasatzeko agindua noiz entzungo. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Orduan, gorazarreak kantatu zizkioten Jaunari, egin zizkien **egintza** handiak aitortuz. Jose Antonio Mujika

Nolako **egintza** handiak egin eta nolako nekeak jasan izan zituzten. Elizen arteko biblia

Joka ezazue ongi jentilen artean; horrela, orain gaizkiletzat salatzen bazaituztete ere, zuen **egintza** onak aitortu beharko dituzte eta Jainkoa goretsiko dute. Elizen arteko biblia

Nafarroako Gobernuaren «**egintza** burutuen politika» salatu du, halaber, Greenpeaceko zuzendariak. Berria - Euskal Herria

Pentsatzea, aztertzea, asmatzea -ziostan beste pasarte batean- ez dira **egintza** bitxiak, adimenduaren arnasa arrunta baizik. Juan Garzia

Nork jartzen du zalantzan **egintza** gaiztoak direla adulterioak, gizahilketak, sakrilegioak? Imanol Unzurrunzaga

Nire denborako **egintzarik** zikinenetakoa izan zen. Matías Múgica

Egintza apal eta zerbitzu baxuetara makurtzen direnean. Askoren artean

Kanta Jaunari kantu berria, / **egintza** harrigarriak egin baititu. Elizen arteko biblia

Zail egiten zaigu santuen **egintza** miresgarriak sinestea. Askoren artean

Nire zerbitzaria **egintza** bertutetsu horren lekuko izan da. Jon Muñoz

Asaren gainerako jardunak, **egintza** adoretsuak, egin zuen guztia eta nola gotortu zituen hiriak "Judako Erregeen Kronika" liburuan daude idatziak. Elizen arteko biblia

Zure izen handiaren eta zure **egintza** ahaltsuen berri aditurik. Elizen arteko biblia

Egia zen beti jotzen zuela **egintza** erreflexu berberak betetzera. Joxemari Iturralde

Etorkizunean inoiz **egintza** errudunik nahita burutuko baduzu, Jaungoikoak aurrez ikusia izan arren, zuk nahi izandako **egintza** izango da. Imanol Unzurrunzaga

Onginahizko **egintza** adieraztezin honen (hots, Gizakundearen) ondorioak munduan zehar zabaldu ahal izateko, Jainkoaren probidentziak aurrez Erromatar Inperioa sortarazi zuen. Iñaki Mendiguren

Jainkoak erabaki du **egintza** jainkozkoak bakarrik saritzea. Joan Mari Lekuona

Sofrikizun gehiago hartzeko, **egintza** izpirituzkoak areago betetzeko. Joan Mari Lekuona

Ondorengo gogojardun guztietan arakatuz baliatzen garenez gero adimeneko **egintzez** eta grinatuz borondatekoez, errepara dezagun, borondateko **egintzetan** Jainko gure Jaunarekin edo bere santuekin ahozko nahiz gogozko otoitzez mintzo garenean, begiramen handiagoa behar dela gure aldetik gauzak ulertzeko adimena erabiltzen dugunean baino. Patxi Altuna

Eguneroko **egintzak** dira, eta eguneroko beste **egintza** batzuk jarraituko zaizkie atzetik. Iñaki Iñurrieta

Egia da esentzia bakarrak askotariko **egintzak** bete ditzakeela, baina Jainkoaren (gorets bedi!) esentziazko atributuak ez datoz Haren **egintzetatik**, ez bailitzateke onartzekoa Sortzaileak bere burua sortzea. Xabier Kintana

Jainkoa zerbitzatu nahi zenukeela esan duzunez, hona errukizko **egintza** bat zuretzat. Jose Morales

Hain zerbitzari eta bertutezko **egintza** guztietara hain emana. Askoren artean

Komeni da Estatua gobernatzen duenarengandik bihozberatasun, barkamen, urriki eta ongi nahizko **egintzak** maizago agertzea, zigortzekoak baino, hamahiru middôt-ak guztiak bihozberatasunezko **egintzak** baitira. Xabier Kintana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izan ere, Jainkoaren erreinua ez da hitz-kontua, **egintza**-kontua baizik. Elizen arteko biblia

Irudimen [...]: poetak eta gezurtiak erdi bana duten **egintza**-biltegia. Xabier Olarra

Sustengu komiteak **egintza** parrasta bat prestatzen ari du jendea mugi dadin Filipe Bidart-en libratzea eskatzeko. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizarte-desintegrazioaren ondorio hauek badute rol bat sorkuntza-**egintza** berrietan jokatzeko. Iñaki Mendiguren

Kartesiar sistema osoa Jainko ahalguztidunaren ideian oinarritua dago, nolabait ere bere burua sortzen duena eta ondorioz, *a fortiori,* betiereko egiak sortzen dituena, matematikakoak barne, eta unibertsoa *ex nihilo* sortzen duena, eta etengabeko kreazio-**egintza** batez iraunarazten diona. Iñaki Mendiguren

Argazki-irudiaren kasuan ez dela gertatzen ikuspen-**egintza** soilik. Josu Zabaleta

Noizbehinkako erreflexu **egintza** berantiarrak. Migel Angel Mintegi

Edo fedezko egintza bat edo matxinatze-**egintza** bat. Oskar Arana

Denboran zerturiko topaketa bat (berpizkunde bat), bestalde, nekromantzi **egintza** da, arima bati dei egitea. Iñaki Mendiguren

Mitoa izan daiteke, benetan, exortzismo-**egintza** erritual bat literatur narratibara pasatzea, non militarki garaile baina espiritualki atsekabetua dagoen barbaroa erremedio praktikoa aurkitzen ahalegindu den bere gaixotasun psikologiko suntsigarriarentzat. Iñaki Mendiguren

Iraultza mimesi-**egintza** atzeratu eta ondorioz lehergarri gisa defini daiteke. Iñaki Mendiguren

Literaturarako ez ezik, hizkuntza-**egintza** guztietarako balio digu aipuak. Iñaki Arranz

Ez zituztela bazterrera utzi behar otoitz santu eta debotoa, limosna eske joatea, noizik behin esku-lanetan jardutea eta, beste anaiek bezala, beste apaltasun-**egintzak** obratzea. Askoren artean

Antzinako zeure maitasun-**egintzez** oroiturik. Askoren artean

Otoitz garbitik eta beste bertute-**egintzetatik** datorren debozioa eta alaitasuna. Askoren artean

Baina odoleko aitak gogor eraso zion erruki-**egintzetara** emana bizi zenari. Askoren artean

Niregan bizi den Aita da bere salbamen-**egintza** burutzen ari dena. Joan Mari Lekuona

Epaile gorenaren gorazarrea mereziko dieten limosna-**egintzak** haiei egiteko. Askoren artean

Jainkoa bilatzean, gizakia gizarte-**egintza** ari da zertzen. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean haren egintza (3); **artean kultural egintza** (4); **baina egintza** (5); **baten egintza** (3); **beraren egintza** (5); **bere egintza** (23); **bere egintza guztiak** (4); **bere egintza guztietan** (5); **beren egintza** (10); **beste egintza** (9); **beste egintza batzuk** (3); **bezalako egintza** (3); **da egintza** (7); **den egintza** (4); **diren egintza** (4); **ditudan egintza** (3); **dituen egintza** (5); **du egintza** (5); **duen egintza** (6); **duten egintza** (3); **edo egintza** (6); **edozein egintza** (3)

egintza adierazteko (3); **egintza ahaltsuak** (3); **egintza ahaltsuen** (3); **egintza ahaltsuen berri** (3); **egintza baino** (5); **egintza bakoitza** (3); **egintza bat** (21); **egintza batean** (3); **egintza batek** (5); **egintza baten** (6); **egintza batez** (3); **egintza batzuen** (4); **egintza batzuen moldatzeko** (4); **egintza batzuk** (3); **egintza bera** (3); **egintza bikainak** (5); **egintza da** (7); **egintza edo** (4); **egintza eta** (18); **egintza ezberdinak** (3); **egintza gaizto** (6); **egintza gaiztoa** (3); **egintza gaiztoak** (6); **egintza gaiztoen** (5); **egintza gaiztoengatik** (4); **egintza gaiztoetatik** (3); **egintza guztiak** (33); **egintza guztiak eta** (4); **egintza guztiak israelgo** (3); **egintza guztiak judako** (6); **egintza guztiei** (3); **egintza guztien** (3); **egintza guztietan** (14); **egintza handi** (6); **egintza handia** (7); **egintza handiak** (24); **egintza handiaren** (4); **egintza harrigarri** (11); **egintza harrigarri eta** (5); **egintza harrigarriak** (44); **egintza harrigarriak egin** (8); **egintza harrigarriak eginez** (3); **egintza harrigarriak eta** (4); **egintza harrigarrien** (4); **egintza harrigarrien bidez** (3); **egintza harrigarriz** (3); **egintza hartan** (3); **egintza hau** (6); **egintza higuingarri** (4); **egintza higuingarriak** (3); **egintza higuingarrien** (3); **egintza hori** (17); **egintza horiek** (16); **egintza horien** (7); **egintza horrek** (4); **egintza horren** (5); **egintza ikaragarriak** (17); **egintza ikaragarriak hauek** (16); **egintza kriminal** (3); **egintza**

kriminalen (5); **egintza miragarriak** (12); **egintza miragarrien** (4); **egintza miresgarriak** (5); **egintza on** (15); **egintza on bat** (3); **egintza on guztietan** (3); **egintza ona** (6); **egintza onak** (18); **egintza onen** (10); **egintza onetan** (7); **egintza onik** (3); **egintza txarrak** (3); **egintza txarrez** (3); **egintza zen** (4); **egintza zuzenak** (3)

era guztietako egintza (3); **ere egintza** (3); **erruki egintza** (7); **errukizko egintza** (3); **eta beste egintza** (3); **eta egintza** (89); **eta egintza guztiak** (10); **eta egintza harrigarri** (3); **eta egintza harrigarriak** (19); **eta egintza harrigarrien** (4); **eta egintza txarrak** (3); **eta jaunaren egintza** (3); **eta zure egintza** (3); **giza egintza** (4); **gure egintza** (7); **guztietako egintza** (3); **haien egintza** (4); **haren egintza** (31); **haren egintza bikainak** (3); **haren egintza guztiak** (5); **haren egintza harrigarriak** (5); **hiru egintza** (16); **hiru egintza ikaragarriak** (16); **hitz eta egintza** (3); **holako egintza** (3); **horrelako egintza** (4); **jainkoaren egintza** (9); **jainkoaren egintza miragarriak** (3); **jardunak eta egintza** (10); **jaunaren egintza** (11); **jokabide eta egintza** (3); **kanpoko egintza** (4); **kultural egintza** (4); **kultural egintza batzuen** (4); **mirari eta egintza** (14); **mirariak eta egintza** (14); **nire egintza** (4); **nolako egintza** (4); **salbamen egintza** (3); **zen egintza** (4); **zenbait egintza** (3); **zeuen egintza** (6); **zeure egintza** (5); **zituen egintza** (4); **zuen egintza** (6); **zuen egintza onak** (3); **zure egintza** (18); **zure egintza ahaltsuen** (3); **zure egintza handiak** (4); **zure egintza miragarriak** (4); **zuten hiru egintza** (16)

anaien egintzak (3); **beraren egintzak** (6); **bere egintzak** (8); **beren egintzak** (5); **diren egintzak** (3); **ditut zure egintzak** (5); **duten egintzak** (3); **egintzak aztertzen** (3); **egintzak aztertzen dituenari** (3); **egintzak egiten** (7); **egintzak ere** (4); **egintzak eta** (10); **egintzak ez** (5); **egintzak ez dira** (3); **egintzak ikusi** (4); **erruki egintzak** (8); **errukizko egintzak** (3); **eta egintzak** (30); **eta haren egintzak** (6); **gure egintzak** (6); **haren egintzak** (24); **haren egintzak aztertzen** (3); **ilunpetako egintzak** (3); **jainkoaren egintzak** (11); **jardunak eta egintzak** (3); **jaunaren egintzak** (7); **jokabidea eta egintzak** (4); **nire egintzak** (4); **zure egintzak** (12)

adimendua egintzan (9); **adimendua egintzan** (9); **egintzan existitzen** (3); **egintzan existitzen** (3); **egintzaren objektua** (3)

bakoitzari bere egintzen (5); **bere egintzen** (18); **bere egintzen arabera** (11); **bere egintzengatik** (3); **bere egintzetan** (5); **beren egintzen** (3); **beren egintzengatik** (3); **egintzen arabera** (14); **egintzen arabera ordainduko** (3); **egintzen arabera ordaintzen** (3); **egintzen bidez** (8); **egintzen eta** (5); **egintzen ordaina** (3); **egintzetan ez** (3); **egintzez eta** (4); **eta egintzen** (3); **eta egintzetan** (7); **haren egintzen** (9); **zure egintzen** (3); **zure egintzen eta** (3)

---

eginzale *iz* adierazten dena egiten zalea dena.

Ada ez zen batere erlijiozalea (mojen ikastetxe batean egin zituen nerabezaroko ikasketak, eta edozer lortzeko otoitz egitera behartzen zutelako omen zetorkion giza arrazoiak ulertu ezin duen ororenganako mesfidantza), baina ez zen, halaber, besteen uste eta sinesmenen bizkar irri **eginzale** ere. Edo, nire su zintzo hark artzain zakur bizkor, leial, erne, bere lana ongi **eginzale** batek bezala zaintzen ninduela iruditzen zitzaidan. Anjel Lertxundi

---

egiptano *iz* ijitoa.

Eta horrexegatik uste dut, hain zuzen, bereganatu duela babak, izenetik izaneraino, halako **egiptano** kutsu zakar bat. Patziku Perurena

---

egiptiar ik **egiptoar**.

---

egiptoar *(**332** agerraldi, **35** liburu eta **58** artikulutan; ETCn **2.649** agerraldi; orobat **egiptiar** **64** agerraldi, **32** liburu eta artikulu **1**ean; ETCn **128** agerraldi, **egipziar** g.er., **ejiptiar** g.er. eta **egiptotar** g.er.)* **1** *izond* Egiptokoa, Egiptori dagokiona.

Berak hil zuen itxura bikaineko gizon **egiptoar** bat ere. Elizen arteko biblia

Moustaki izeneko kantari **egiptoar** batek ere. Pello Salaburu

Naguib Mahfuz idazle **egiptoarraren** hitzaldi batekin hasiko da azoka. Berria - Kultura

Taldeak Jaled Islambuli militar **egiptoarraren** izena darama. Berria - Mundua

Bazuen Xexanek esklabo **egiptoar** bat, Jarha izenekoa. Mohamed Mamdu Kutb diplomatiko **egiptoarra** ostiral gauean Bagdaden bahitu ondoren, Iad Alaui Irakeko lehen ministroak Kairoko Gobernuari zinki eskatu zion atzo «terroristen exijentziei amore ez emateko». Elizen arteko biblia

Anter eta Abla melodrama **egiptoarra** ikustera soilik joaten nintzen. Juan Kruz Igerabide

Hain zuzen ere, hau izango da sala korintoarren eta **egiptoarren** arteko diferentzia. Santiago Iruretagoiena

Horma-irudi **egiptoar** batetik ateratako figura zirudien. Josu Landa

Pasaiara heldu zenean estibadoreen greba bukatuta zegoela ohartu zen, aste luzeetan portuan ainguraturik egon zen merkatontzi **egiptoar** nabarmena desagertua zenez. Harkaitz Cano

Hamida, noiz edo noiz, amarekin joan ohi zen Olinpia zinemara film **egiptoarrak** ikustera. Patxi Zubizarreta

Kosmogonia **egiptoar** eta mesopotamikoan. Patziku Perurena

Sadat **egiptoarra** hil zuten urriaren 6an. Pello Salaburu

2 (izenlagun gisa)

Halaxe aurkeztu zidaten Omar Hassim-Ali, berrogeita hamahiru urteko **egiptoar** auto-gidari bat. Oskar Arana

Ez zenuke sinetsiko **egiptoar** azti zahar haiek nolako madarikazioak jartzen zituzten hilobietan. Iñaki Mendiguren

Egiptoar buruzagiak dionaz. Herria

Ozeano hori arabiar aintzira bihurtua zen, bertara ezin zirelarik sartu **egiptoar** bitartekarien merkataritza-bazkide veneziarrak. Iñaki Mendiguren

Psametiko I.a faraoi askatzailearen **egiptoar** gobernua. Iñaki Mendiguren

Antigoaleko **egiptoar** izkribuok, berriz, poesia funtsean analogia dela erakusten digute. **Egiptoar** lehen-semeak oro hilko dira, errege-aulkian esertzen den faraoiaren lehen-semetik hasi eta errotan ari den neskamearen lehen-semeraino. Patziku Perurena

Israelgo erregeak ordaindu egingo zien hitita eta **egiptoar** erregeei gure kontra oldartzeko. Elizen arteko biblia

Eta **egiptoar** gudarosteari, zaldi eta gudu-gurdiei, egindakoa. Elizen arteko biblia

Elleni silueta garai bekain gorrixka bat hurreratu zitzaion, **egiptoar** buru-estalkia zeramana. Lopez de Arana

• **3** *iz* Egiptoko herritarra.

Hiru kenyar, hiru indiar eta **egiptoar** bat gatibu hartu dituen taldeak atzoko finkatuta zuen epea luzatu egin du. Berria - Mundua

Ontziak 1.200 **egiptoar**, 99 saudiar, hiru siriar, bi sudandar eta kanadar bat zeramatzan. Berria - Mundua

Egiptoar bakoitzak bi izen hartzen zituen: izen handia eta txikia. Patziku Perurena

Bazter haietan **egiptoar** bat aurkitu zuten eta Davidengana eraman. Elizen arteko biblia

Urteen poderioz eta denboraren denboraz, urte batek azkenean bestea jaten zuenean, **egiptoarrek** ziklo berri baten hasiera aldarrikatzen zuten. Pello Salaburu

Gidariak jakinarazi zigunez, **egiptoarren** etorbide hori estutu egiten da pixkanaka, luzeago delako efektua lortu ahal izateko. Ramon Saizarbitoria

Baina Jaunak bereizkuntza egingo du israeldarren eta **egiptoarren** abereen artean: ez da israeldarren abererik bat bera ere hilko. Elizen arteko biblia

Berak hil zuen bi metro eta erdiko **egiptoar** erraldoi bat ere. Elizen arteko biblia

Egiptoarrek lan-arduradunak ezarri zizkieten israeldarrei lan neketsuetara makurrarazteko. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina egiptoarrek (4); **diplomatiko egiptoarra** (5); **ditu egiptoarrak** (3); **ditut egiptoarrak** (5); **dute egiptoarrek** (5); **dute egiptoarrek ni** (3); **egiptoar bat** (14); **egiptoar bat eta** (3); **egiptoar batek** (4); **egiptoar eta** (6); **egiptoarrak eta** (6); **egiptoarrak hil** (3); **egiptoarrek ni** (3); **egiptoarrek ni naizela** (3); **egiptoarren abegi** (3); **egiptoarren abegi ona** (3); **egiptoarren eskuetatik** (4); **eta egiptoar** (13); **eta egiptoar bat** (4); **eta egiptoarrak** (3); **eta egiptoarrek** (7); **eta egiptoarren** (7); **jakingo dute egiptoarrek** (3); **jaunak egiptoarren** (3); **kutb diplomatiko egiptoarra** (3); **zuen egiptoarra** (3); **zuten egiptoarrek** (4)

dute egiptiarrek (3); **eta egiptiarrek** (4); **eta egiptiarren** (4)

---

egiptoera *iz* antzinako Egiptoko hizkuntza.

"Inperio Ertain" egipziakoan, adibidez, hizkuntza eta idazkerak **egiptoera** klasikoa eta karaktere hieroglifikoak izan behar zuten nahitaez. Iñaki Mendiguren

Hain zuzen, akerrari eta Pani **egiptoeraz** Mendes deritzete. Patziku Perurena

---

egiptologo *iz* antzinako Egiptoko kulturan aditua.

Hala, Huggyns dk. **egiptologo** ospetsuak argitzen du hilobiak errugabeki "induska" daitezkeela barrukoak "kiratsa zabaltzeari" utzi bezain laster, ordurako arimak lekua alde batera hustua baitu. Xabier Olarra

Ezagun zaigun adibide-multzo bat aipa daiteke erakusteko **egiptologo** ospetsu honek zerturiko proposizioa benetan aspaldiko egia historikoa dela. Iñaki Mendiguren

Gure **egiptologoak** oinarritzat hartutako printzipioaren arabera, askoz tarte laburragoa egon behar luke eraikin horietako lehenengoaren eta bigarrenaren artean -gutxi gorabehera estilo berekoak direlarik- bigarrenaren eta hirugarrenaren artean baino -erabat estilo desberdinetakoak direlarik-. Iñaki Mendiguren

---

egiptotar ik **egiptoar**.

---

egipziako *(49 agerraldi, liburu 1ean; ETCn 6 agerraldi) izond* egiptoarra, eskuarki antzinako Egiptori dagokiona.

Zibilizazio **Egipziakoa** bere garaikide guztiak -minoikoa, sumerikoa eta Indus kultura- hiltzen eta belaunaldi gazteagoko ondorengoei pasatzen uzten ikusteraino bizi izan zen. Iñaki Mendiguren

Siria topaleku izan zen, hurrenez hurren, Zibilizazio Sumeriko eta **Egipziakoaren** artean; Zibilizazio **Egipziako**, Hitita eta Minoikoaren artean; Zibilizazio Siriako, Babiloniko, **Egipziako** eta Helenikoaren artean; [...]. Berria - Kirola

Merkataritzaren aldetik elkarri loturiko mundu **egipziako**, babiloniko, siriako eta helenikoan metal preziatuen erabilera balio-neurri gisa, egoki pisa zitezkeen barra-unitateetan. Iñaki Mendiguren

Historia **egipziakoak** eta Ekialde Urrunekoak erakusten dute badela alternatiba bat, petrifikazioa alegia. Iñaki Mendiguren

"Inperio Ertain" **egipziakoan**, adibidez, hizkuntza eta idazkerak egiptoera klasikoa eta karaktere hieroglifikoak izan behar zuten nahitaez. Iñaki Mendiguren

Gizarte Babilonikoa eta **Egipziakoa** azkenean Gizarte Siriakoak bere gizarte-gorputzera ekarri zituen. Iñaki Mendiguren

Egiptoko "Inperio Ertaina", adibidez, jatorrizko estatu unibertsal **egipziakoa** zena, horretarako erabili zuen osiriar elizak. Iñaki Mendiguren

Magnus annus baten bilakuntzak, non bat ez datozen ziklo horiek guztiak aldi berean hasi eta azkenean beren hurrengo aldi bereko abiapuntura iritsiko liratekeen, matematika astronomikoen aplikazio harrigarriak eragin zituen **egipziakoa**, babilonikoa eta maiena bezalako gizarte goiztiarretan. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egipziako eta** (3); **gizarte egipziakoak** (3); **gizarte egipziakoak** (3); **zibilizazio egipziakoa** (5)

---

egipziar ik **egiptoar**.

---

egitaldi *iz* zerbait egiten den aldietako bakoitza.

Pentsatu zuen azken **egitaldia** ez zela izango lehenbizikoa bezain latza, eta aukera emango ziola, dudarik gabe, garaipenaren eta justiziaren zaporea dastatzeko. Juan Garzia

---

egitamu 1 *iz* egitasmoa, programa.

Ongi iruditzen al zaizu ni gogor hartzea, zeure eskuen lana mesprezatu eta gaiztoen **egitamua** ederrestea? Elizen arteko biblia

Zientzia-ikerkuntzaren garrantzia aitortuz, ikerkuntza-ordezkaritza bat sortu zuen, hainbat urtetarako **egitamu** baten arabera gehituz zihoan aurrekontu batekin. Juan Garzia

Estatu Batuetan martxan jarri zen **egitamu** baten barruan, hainbat milaka pertsonak esterilizatu zituzten, "buru-motel"tzat jota. Juan Garzia

Jaurlaritzaren dekretuak, bestalde, Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko **Egitamuaren** barruan oraindino indarrean diren hainbat arau urratzen dituela azaldu du Terceñok. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Atzerakako neure bidaia- **egitamu** ezkutuan, beste helbururen batzuk banituen. Txillardegi

Badira hainbat mila urte posible dela hautespen- **egitamu** bat martxan jartzea gizakien artean, eta pekindar txakurrak eta artzanor alemanak edo daniarrak eta bassetak bezain leinu beren artean desberdinak sortzea. Juan Garzia

---

egitandi *iz* ausardia edo adore handiko egitea; egite miragarri edo gogoangarria. ik **balentria**.

Negu batean Martinek **egitandi** bat egin zuen, herrian gogotik aipatu zena. Koro Navarro

Homerok kontatzen dituen **egitandietako** gudari ospetsuek bezala. Josu Zabaleta

Bi liburu idatzi ditu Ginny bere lagunaren **egitandiak** kontatuz. Gotzon Garate

Munduko elbarri askok buruturiko **egitandiak** kontatu zizkion. Gotzon Garate

Egitandirik nabarienek beren dirdaia galtzen ditek hitzen moldean argitara ezik. Juan Garzia

---

egitarau 1 *iz* ospakizun edo ikuskari bateko zatiak aditzera ematen dituen izkribua; programa.

Donibaneko besten **egitaraua**. Ramuntxo Etxeberri

Musika Hambostaldiko Ziklo Garaikideko **egitaraua**. Berria - Kultura

Bertsolariek, antzerki emanaldiak, umeentzako jokoek, erakusketek eta Oreka TX, Gatibu eta Barricada taldeen musika emanaldiak osatuko dute **egitaraua**. Berria - Harian

Zuzendaria: Juanjo Mena. **Egitaraua**: Ramon Lazkano, Haydn eta Beethovenen obra bana. Berria - Kultura

Egitaraua: Beethoven, Copland, Holst. Berria - Kultura

Egitarauan: goizeko 9etan, Plaza-Etxeberria etxaldearen bisita; 10etan, biltzar nagusia Herriko-Etxean, Roger Gamoy auzapezaren ongi-etorriarekin; 11etan, Maryse Cachenaut laborarisaren mintzaldia, laborantzaren bilakaeraz; eguerditan, bazkaria Elizaldea ostatuan, "Basaburu" taldearen ekoizpenekin. Herria

Egitarauan: nekazaritza ekologikoaz hitzaldi, artisauen erakusketa, ardi ile-moxte xapelgoa, artzain xakur xapelketa, Irunberriko arroilan gaindi ibilaldi, arno ekologikoaren jastatze, dantza eta abar. Herria

Inaugurazio festarako, On Camillok **egitarau** polita prestatu zuen: abesbatzaren kantaldia, atletismo lehiaketak eta futbol partida. Koldo Biguri

Gisa honetako hitzaldiak, bestalde, herriko festen **egitarauaren** barruan joan ohi ziren, jendearen erakargarri. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

-Festibalaren **egitaraua** finkatu duzu? Ramuntxo Etxeberri

Egitaraua goizeko hamarretan abiatuko da, Mauleko Herriko Etxean. Berria - Harian

Harrituta zegoela **egitarauan** ez zegoelako sartuta eraztun jokorik. Koldo Biguri

Poesia, ardoa eta biolinak izango direla dio **egitarauak**. Edorta Jimenez

Afari aurretxorako programatutako emanaldirako **egitaraua**, zehatzago esanda. Jon Muñoz

Komunikazioak; urteko bazkaria, 1932ko kuota, martxoko txangoen **egitaraua**; bestelako gaiak; kide berriak. Monika Etxebarria

Han-hemen bilatuz, **egitaraurik** gabe, txoriburu batek bezala jokatua zen. Jon Muñoz

Nahi ote dute nik ikasketen **egitaraua** finkatzea? Itxaro Borda

Etzidamu **egitaraua** errepikatuko dute. Berria - Kultura

Harreman sexuala -hoberenera jota ere halabeharrez- zinema-dantza-merienda **egitarauan** sartzen zelako onartzen zuten. Ramon Saizarbitoria

Eguneroko **egitaraua** zereginez beterik, lana edo ikasketak, aisialdiak, leku batetik bestera mugitzea, etxetik lantokira, lantokitik etxera, bazkaltzera joan, berritz jin, hau ikusi, hura ikusi, berriak hartu, erosketak egin, janaria prestatu... Filipe Bidart

Egitarauko 26 film laburretatik bakarra izango da euskaraz jarraitzeko moduan. Berria - Kultura

Ponentziez gainera, **egitarautik** kanpo 5-10 minutu iraungo duten 20 komunikazio irakurriko dira. Berria - Euskal Herria

Zer da, Frantziako erresuman, hautetsien **egitaraua**? Herria

Egitaraua urratsez urrats beteta eta kalterik gabe lurreratu zen igandean Stardust zundak espaziotik askaturiko kapsula. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aurtengo festen **egitarau** ofizialak dioenaren kontra, Gargantua ez dago han. **Egitarau** ofizialaren ondoan, estaturik gabeko herrien ordezkariek zein hizkuntza gutxituen alde diharduten elkarte eta egiturek **egitarau** osagarria prestatu dute. Iban Zaldua

Mahai izkinan jarri nintzen, Xiberoko Botzako iluneko **egitarau** musikala entzuten. Itxaro Borda

Gazte orkestretan musikari oso handiak daude eta horiekin **egitarau** originalak eta berritzaileak prestatzea da egun benetan interesgarriena, **egitarau** ezagunak egin beharrean. Berria - Kultura

Egitarau mamitsua dakar aurtengo jazzaldiak. Berria - Kultura

Gogoan harturik Frantzian 2000 urtea handikiro ospatzen dihardutela, **egitarau** berezi baten bidez hain zuzen, ez nengoke lar oker aristokrata aireko emakume gaztea ekimen horren arduradunetakoa dela esango banu. Edorta Jimenez

Egitarau «trinkoa» eta «askotarikoa» izango dute aurtengo Eibarko Antzerki Topaketek. Berria - Kultura

Hitzetan ez, baina egitekoaren **egitarau** zehatza soakoetan iltzatua zuten. Itxaro Borda

Hala ere, ez du beti **egitarau** osoa betetzen. Jon Alonso

Aurtengo **egitarauan** Murderball filma nabarmentzen da. Berria - Kultura

Dena den, aurkeztutako **egitaraua** ez da behin betikoa. Berria - Kultura

Betiko **egitarau** ezaguna. Jokin Muñoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Telebistetako **egitarau** muntatzaileek ontsa dakite estresak gatibatu sozietate "kitzikatu" honetan loa gehiengoaren kezka bilakatua dela. Itxaro Borda

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herriaren Etxea inauguratzeko ekitaldirako gonbidapena zen, ospakizun **egitarauarekin** batera. Koldo Biguri

Astekari horrek telebista **egitarauak** nahi lituzke zabaldu Euskal Herri osoan. Herria

Bilboko kultur **egitaraua** osatu nahi dute antolatzaileek MEM 2004 jaialdiarekin, «makro ikuskizunen aurrean alternatiba bat» eskainiz. Berria - Kultura

Hurrengo astean, bi gertaerak atera ninduten nire ikasketa-**egitarau** zorrotzetik. Juan Kruz Igerabide

Ez baita formakuntza **egitarau** ederragorik eta sanoagorik haurren baitan izpiritu eta bihotz berri baten moldatzea baino. Michel Oronoz

Gure entrenamendu-**egitarau** berriaren parte da hau. Iñaki Mendiguren

Galdera esplizituen multzo baten arabera subjektu galdetzailea da, eta informazio **egitarau** baten arabera subjektu entzulea da. Xabier Arregi

Nagusiaren eta sindikatuen artean hitzartu likidatze **egitarauaren** arabera hogeita lau hilabete bazituen lan baten atzemateko. Itxaro Borda

Pentsa zitekeen bere bizi-**egitaraua** diktatu ziola hil aurretik aitak mutil gazteari. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da egitarau (3); **egitarau aberats** (11); **egitarau aberats bat** (3); **egitarau aberats batekin** (5); **egitarau aberatsa** (11); **egitarau bat** (7); **egitarau batean** (3); **egitarau berezi** (3); **egitarau eder** (5); **egitarau eder bat** (5); **egitarau edo** (8); **egitarau edo programa** (5); **egitarau eta** (7); **egitarau guziz** (3); **egitarau herrikoia** (3); **egitarau hori** (4); **egitarau mamitsua** (4); **egitarau nagusia** (4); **egitarau nasaia** (5); **egitarau ofiziala** (3); **egitarau oparoa** (5); **egitarau osagarria** (3); **egitarau oso** (4); **egitarau osoa** (8); **egitarau zabala** (18); **egitarau zabala prestatu** (8); **egitarau zehatza** (3); **egitarau zinez** (3); **eta egitarau** (5); **zuen egitarau** (3); **zuten egitarau** (3)

antolatzaileek egitaraua (3); **aurtengo egitaraua** (13); **bere egitaraua** (5); **besten egitaraua** (5); **da egitaraua** (7); **den egitaraua** (5); **du egitaraua** (8); **duen egitaraua** (7); **duen egitaraua aurkeztu** (3); **dute egitaraua** (8)

egitaraua abian (3); **egitaraua apirilak** (4); **egitaraua aurkeztu** (7); **egitaraua aurkeztuko** (3); **egitaraua betetzeko** (3); **egitaraua bihar** (5); **egitaraua da** (3); **egitaraua ekainak** (3); **egitaraua ekainaren** (3); **egitaraua ere** (6); **egitaraua eskainiko** (4); **egitaraua eskainiko du** (3); **egitaraua eta** (4); **egitaraua ez** (3); **egitaraua gaur** (12); **egitaraua goizeko** (4); **egitaraua hauxe** (6); **egitaraua hauxe izanen** (4); **egitaraua irailak** (5); **egitaraua maiatzak** (4); **egitaraua maiatzaren** (4); **egitaraua martxoak** (3); **egitaraua osatzeko** (4); **egitaraua osatzen** (4); **egitaraua prestatu** (8); **egitaraua prestatu du** (3); **egitaraua prestatu dute** (4); **egitaraua uztailak** (5); **egitaraua xeheki** (3)

egun horren egitaraua (3); **egun hortako egitaraua** (3); **egun osoko egitaraua** (3); **egunaren egitaraua** (10); **egunen egitaraua** (3); **eta egitaraua** (8); **gaurko egitaraua** (10); **hautetsien egitaraua** (3); **hemen egitaraua** (5); **hona egunaren egitaraua** (4); **horren egitaraua** (5); **hortako egitaraua** (4); **huna egitaraua** (26); **huntako egitaraua** (4); **igandeko egitaraua** (6); **ikus egitaraua** (7); **jaialdiaren egitaraua** (3); **jardunaldien egitaraua** (3); **lan egitaraua** (3); **musika egitaraua** (4); **osatuko dute egitaraua** (3); **osaturiko egitaraua** (3); **osatzen dute egitaraua** (3); **osoko egitaraua** (3); **z egitaraua** (73); **z egitaraua bihar** (3); **z egitaraua ekainak** (3); **z egitaraua gaur** (9); **z egitaraua irailak** (5); **z egitaraua maiatzak** (4); **z gaurko egitaraua** (6); **zabalduko du egitaraua** (5); **zuten egitaraua** (3)

atzoko egitarauan (3); **aurtengo egitarauan** (7); **beren egitarauan** (3); **da egitarauan** (3); **dira egitarauan** (5); **ditu egitarauak** (3); **ditu egitarauan** (4); **dituzte egitarauan** (3); **du egitarauan** (4); **egitarauak ere** (3); **egitarauan donapaleun** (3); **egitarauan donapaleun txomin** (3); **egitarauan ere** (6); **egitarauan eta** (4); **egitarauan sartzen** (3); **eta egitarauan** (3); **gaurko egitarauan** (5); **ostegunak egitarauan** (4); **ostegunak egitarauan donapaleun** (3); **otsail ostegunak egitarauan** (4)

aste nagusiko egitarauaren (3); **aurtengo egitarauaren** (4); **egitarauaren arabera** (5); **egitarauaren aurkezpenean** (3); **egitarauaren barne** (3); **egitarauaren barnean** (3); **egitarauaren barruan** (42); **egitarauaren berri** (3); **egitarauaren xehetasunak** (3); **egitarauari amaiera** (3); **egitarautik kanpo** (3); **eta egitarauaren** (6); **eta egitarauko** (3); **holako egitarauarekin** (3); **nagusiko egitarauaren** (3); **zubiak egitarauaren** (3)

---

egitasmo *(ETCn **14.553** agerraldi; cf **proiektu** ETCn **111.902**)* **1** *iz* proiektua; egin asmo dena.

Orduan, asmoak **egitasmo** bihurtzea faltako litzaiguke. Andoni Egaña

Lehenengo asmo xume hura **egitasmo** handi eta ederra izan zitekeela ohartu zenean. Patxi Ezkiaga

Biek aukeratua zuten **egitasmotzat** nerbio-sistemaren hari-antolamendua aztertzea, trebeki hautetsiriko mutante batzuen laguntzarekin. Juan Garzia

Garziak eta Andoni Egaña bertsolariak, orain dela urte batzuk, *Garatu* **egitasmoa** abiatu zuten, ahozkotasuna lantzeko metodoa, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Iruditzen zait denbora gehiegi neramala *Paisaje y gastronomía*-ren **egitasmoa** finantzatzen zuen banketxearen gustu eta iritzira lanean. Ramon Saizarbitoria

Arturo Campion eta Pierre Broussain euskaltzainek, batasunaren gainean 1920an aurkeztu zuten **egitasmoa** eztabaidatzeko. Koldo Zuazo

Batzorde bat osatu zen, **egitasmoa** bideratu eta, hurrengo urtean, beste batzar bat antolatzeko Hondarribian. Koldo Zuazo

Filosofiaren ikuspegitik, Boezioren **egitasmoa** egundokoa izan zen: Platonen eta Aristotelesen obra osoa latineratua eskaintzea. Askoren artean

Aipatu ditudan bi **egitasmoak** (zenbakien serie naturalerako hiztegi infinitu bat, oroimeneko irudi guztiak gogoan hartuko zituen katalogo alferrikako bat) zentzugabeak dira. Juan Garzia

Garai hartan, "bost urteko plan" direlakoen bitartez zirriborratzen zituzten gobernuek beren **egitasmoen** nondik norako nagusiak: etorkizunerako zer aurreikusten zuten, alegia, halako eta halako eremuan. Juan Garzia

Andreak ez zuen egindako botoa ahaztu, ez eta **egitasmoa** bazterrera utzi ere: eliza ederra eraiki zuen eta Santuaren omenez Anaien esku utzi zuen. Askoren artean

Mikel Strogoffek bidaiaren nondik-norakoak erabakita zeuzkan, eta **egitasmo** hura betetzea besterik ez zen kontua. Karlos Zabala

Garai berean beste **egitasmo** bat ere bultzatu zuen Aita santuak: San Frantziskoren bizitza ofiziala idaztea. Askoren artean

Pentsatua dudala haiek zigortzea eta prest nagoela nire **egitasmoa** betetzeko. Elizen arteko biblia

Garat anaiek ez bazuten lortu beren **egitasmoa**, euskaldunen eskubideen gerizatzea, beste nehork ez zuen lortuko. Elena Touyarou

Egitasmoa Gordonen ideia izan zen hasiera-hasieratik. Oskar Arana

Egitasmoa, ordurako, nahiko aurreratuta zegoen, eta Josetxurekin aztertu nuen berriro ere krokisa. Rafa Egiguren

Nire **egitasmoak** burutu egingo dira, nire erabakiak bete. Elizen arteko biblia

Urte hartan berean *Libération* egunkari berria plazaratzeko **egitasmoan** sartu zen buru belarri. Monika Etxebarria

Edo nahiago ote zuen Michigan osteko bere jatorrizko **egitasmora** itzuli eta bigarren hezkuntzako ingelesezko irakasle izateko lanpostua bilatu? Oskar Arana

Esperimentuaren **egitasmoak** haztamuka zertzen dira, probabilitateetan oinarriturik. Juan Garzia

Historia global baten **egitasmoak** zibilizazio baten forma orokorra berreraikitzea bilatzen du. Xabier Arregi

Plangintzarik gabe **egitasmoek** porrot, askoren aholkuez arrakasta. Elizen arteko biblia

Egitasmoak aholkuen bidez sendotzen dira, gerra estrategia egokiaz egiten. Elizen arteko biblia

Neuk sortzen ditut **egitasmoak** eta arrakastaz burutzen, neureak ditut adimena eta indarra. Elizen arteko biblia

Kontrabandista guztiak harrapatzeko **egitasmo** bat aurkeztu zuen, bere kasa jarduteko baliabideak soilik eskaturik. Jose Morales

Liburutegi pertsonal oro bizitza baten **egitasmoa** eta ispilua da: agerian daude jabearen ametsak eta desioak. Anjel Lertxundi

Edozein **egitasmotan** bereizi ohi dira norabidea eta lastertasuna. *Batekmila* deitzen da hiru urte iraunen duen **egitasmo** hori. Koldo Zuazo

Erakunde, elkarte, enpresa, **egitasmo**, programa eta abarrek izen berezia behar dutenean, ugari agertzen dira asmatitzak: Arabarri, Arkeolan, Arteleku, Bidailan, Bilbobus, Bionekaraba, Bizkaibus, Elektronikaldia, Eresbil, Ertibil, Etniker, [...]. Iñaki Arranz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

"Finnegans helburu", horra haren **egitasmo** berriaren leloa. Iñaki Iñurrieta

Egitasmo ausarta iruditu zitzaidan, baina inola ere ez burugabea. Joxe Austin Arrieta

Uste zuen liburu-dendari baten laguntzaile bihurtzea nekez izan zitekeela **egitasmo** zirraragarria. Oskar Arana

Egitasmo handiak dituzu eta huts egin gabe burutzen. Elizen arteko biblia

Han aritu zen inoren **egitasmorik** burugabeenak ere aurrera atera beharrez. Goresten zaitut eta zure izena dut ospatzen, burutu baitituzu zeure **egitasmo** miragarriak. Juan Garzia

Orduz geroztik hazten joan den **egitasmo** komunikatiboa da. Txema Ramirez de la Piscina

Aurtengo **egitasmoen** eta aurrekonduen aurkezpena, eztabaida eta bozka.

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iradoki dugun hizkuntz teoriaren ikerkuntza-**egitasmoan** hiru betebehar nagusi daude. Itziar Laka

Behaketa-**egitasmoak** gauzatu behar ditugu ia egunero. Mirentxu Larrañaga

*Elocutio*a, ordu arte **egitasmo** erretoriko osoaren atal bat baino ez baitzen, beregain bihurtu zen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Estatutu **egitasmoaren** hitzaurreari buruz. Berria - Euskal Herria

1967an Bettek proposatu zion arte, ez zitzaion inoiz ere bururatu bera familia-**egitasmo** finko batean sartu ahal izango litzatekeenik. Oskar Arana

Euskal nortasuna, Bilbo Athletic-eko kirol **egitasmoaren** baitan. Herria

Adibide bi horiek argiro erakusten dute agintariek euskararenganako zuten jarrera: kultura **egitasmo** xumeenei ere ez zieten eman babesa. Koldo Zuazo

Badugula gure herriarentzat kultur **egitasmo** bat, besteentzat eredugarri ere izan daitekeena. Andoni Egaña

Merkataritza-bankuen zor metatuaren arazoari heltzeko gero eta finantza-**egitasmo** burutsuagoak proposatuz,[...]. Koro Navarro

Bost bide-**egitasmo** ikertuak izan dira eta horietarik bat hautatu du Junta Generalak, Iruitabarrengo bidean barna joanen dena. Herria

Saio-**egitasmoak** ozta-ozta ari dira itxuratzen. Juan Garzia

1967an Bettek proposatu zion arte, ez zitzaion inoiz ere bururatu bera familia-**egitasmo** finko batean sartu ahal izango litzatekeenik. Oskar Arana

Bere bizi-**egitasmoak**, ingurukoarekiko bere erlazio-antolakuntzak ezinbestean egon beharko dutela esperantza eta beldurraren alderantzizko afektu-bikote hori tartean dutela. Piarres Xarriton

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Frantziako Immigrazio **Lege egitasmoa**. Berria - Euskal Herria

5 ***lege egitasmo*** ik **legegai**.

Borondatezko testamentuari lege izaera emango diola iragarri du Erresuma Batuko Gobernuak, eta, horretarako, **lege egitasmo** bat prestatzen ari da. Berria - Gaiak

Liburutegien **lege egitasmoa** Kulturaren Euskal Planaren gogoetetan oinarritua dago, eta EAEko Liburutegia sortzea aurreikusten du. Berria - Kultura

Eusko Legebiltzarraren Lurralde Antolamendu, Garraio eta Ingurumen Batzordea bildu zen atzo goizean, uraren **lege egitasmoari** eginiko osoko zuzenketak eztabaidatzeko. Berria - Harian

Haurtzaroa nahiz nerabezaroa babesteko **lege-egitasmoa** onartu du Gobernu Batzordeak. Berria - Euskal Herria

Genero indarkeriaren aurkako **lege egitasmoa** onetsi du Espainiako Ministroen Kontseiluak. Berria - Euskal Herria

Premiazko **lege egitasmo** gisa bidaliko du PSOEko gobernuak Espainiako Gorteetara. Berria - Ekonomia

Frantziako Immigrazio **Lege egitasmoa**. Berria - Euskal Herria

Senatuak, dena den, ezezkoa eman zion asteazkenean indultu **lege egitasmoari**. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

baina egitasmo (8); **baino egitasmo** (5); **bat egitasmo** (5); **bere egitasmo** (14); **beste egitasmo** (17); **beste egitasmo bat** (7); **bi egitasmo** (12); **da egitasmo** (14); **da egitasmo horren** (5); **den egitasmo** (11); **dira egitasmo** (6); **diren egitasmo** (7); **dituen egitasmo** (5); **du egitasmo** (10); **duen egitasmo** (16); **dugu egitasmo** (5); **dute egitasmo** (8); **edo egitasmo** (5); **egitasmo aurkeztu** (6); **egitasmo bat** (70); **egitasmo bat aurkeztu** (5); **egitasmo baten** (19); **egitasmo bati** (6); **egitasmo berri** (15); **egitasmo berri bat** (5); **egitasmo berria** (16); **egitasmo berriak** (23); **egitasmo berriaren** (7); **egitasmo berriari** (5); **egitasmo eta** (13); **egitasmo gisa** (5); **egitasmo guztiak** (8); **egitasmo handiak** (5); **egitasmo hau** (25); **egitasmo honek** (8); **egitasmo honen** (10); **egitasmo honetan** (10); **egitasmo hori** (46); **egitasmo horiek** (10); **egitasmo horrek** (23); **egitasmo horrekin** (12); **egitasmo horren** (37); **egitasmo horretan** (11); **egitasmo horri** (9); **egitasmo nagusia** (7); **egitasmo nagusiak** (6); **egitasmo nuklearra** (7); **egitasmo nuklearrak** (9); **egitasmo nuklearraren** (8); **egitasmo nuklearren** (10); **egitasmo politiko** (29); **egitasmo politiko jakin** (5); **egitasmo politikoa** (12); **egitasmo politikoak** (9); **egitasmo politikoek** (5); **egitasmo ugari** (6); **egitasmo zehatzik** (9); **eta egitasmo** (40); **eta lege egitasmo** (5); **gure egitasmo** (5); **hainbat egitasmo** (15); **lege egitasmo** (23); **lege egitasmo bat** (5); **zen egitasmo** (5); **zuen egitasmo** (6)

aurrekontu egitasmoa (5); **bake egitasmoa** (5); **bere egitasmoa** (21); **beren egitasmoa** (6); **berrirako egitasmoa** (6); **da egitasmoa** (10); **den egitasmoa** (7); **dion egitasmoa** (6); **du egitasmoa** (13); **duen egitasmoa** (23); **dute egitasmoa** (16); **duten egitasmoa** (5); **egitasmoa abian** (10); **egitasmoa abiatu** (11); **egitasmoa aurkezteko** (8); **egitasmoa aurkeztu** (26); **egitasmoa aurkeztu zuten** (6); **egitasmoa aurkeztuko** (6); **egitasmoa aurrera** (20); **egitasmoa aurrera atera** (6); **egitasmoa aztertu** (8); **egitasmoa bertan** (27); **egitasmoa bertan behera** (25); **egitasmoa bete** (6); **egitasmoa bultzatzen** (5); **egitasmoa da** (32); **egitasmoa dela** (8); **egitasmoa erabat** (8); **egitasmoa ere** (10); **egitasmoa eta** (26); **egitasmoa euskal** (5); **egitasmoa eusko** (5); **egitasmoa ez** (19); **egitasmoa ez da** (7); **egitasmoa gauzatzeko** (10); **egitasmoa gelditzeko** (5); **egitasmoa jarri** (10); **egitasmoa kritikatu** (5); **egitasmoa martxan** (7); **egitasmoa onartu** (21); **egitasmoa onartu du** (5); **egitasmoa onartzeko** (5); **egiteko egitasmoa** (6); **eraikitzeko egitasmoa** (7); **estatutu berrirako egitasmoa** (6); **estatutu egitasmoa** (21); **eta egitasmoa** (15); **eusko jaurlaritzaren egitasmoa** (5); **garatzeko egitasmoa** (5); **gure egitasmoa** (9); **izeneko egitasmoa** (5); **jaurlaritzaren egitasmoa** (21); **jaurlaritzaren estatutu egitasmoa** (7); **lege egitasmoa** (78); **lege egitasmoa onartu** (5); **lurzoruaren lege egitasmoa** (15); **nire egitasmoa** (6); **sortzeko egitasmoa** (9); **urteko egitasmoa** (6); **urterako egitasmoa** (5); **zuen egitasmoa** (19); **zuten egitasmoa** (10)

antzeko egitasmoak (5); **aurtengo egitasmoak** (7); **bere egitasmoak** (7); **beren egitasmoak** (5); **diren egitasmoak** (7); **ditu egitasmoak** (7); **dituen egitasmoak** (7); **du egitasmoak** (16); **duen egitasmoak** (8); **duten egitasmoak** (8); **egitasmoak abian** (5); **egitasmoak aurkeztu** (9); **egitasmoak aurrera** (13); **egitasmoak aurrera egin** (5);

egitasmoak bertan (5); **egitasmoak bertan behera** (5); **egitasmoak ere** (6); **egitasmoak eta** (12); **egitasmoak euskal** (5); **egitasmoak ez** (24); **egitasmoak ez du** (9); **estatutu egitasmoak** (6); **eta aurtengo egitasmoak** (5); **eta egitasmoak** (21); **ibarretxeren egitasmoak** (5); **jaurlaritzaren egitasmoak** (11); **lege egitasmoak** (32); **lurzoruaren lege egitasmoak** (7); **sustatzeko egitasmoak** (6)

egitasmoan parte (14); **egitasmoan sartzea** (5); **egitasmoarekin bat** (14); **egitasmoarekin bat egiten** (5); **egitasmoarekin eta** (6); **lege egitasmoan** (5)

bere egitasmoaren (9); **bere egitasmoaren arabera** (5); **da egitasmoaren** (11); **du egitasmoaren** (6); **duen egitasmoaren** (6); **dute egitasmoaren** (9); **duten egitasmoaren** (5); **egitasmoaren alde** (8); **egitasmoaren arabera** (18); **egitasmoaren aurka** (22); **egitasmoaren aurkako** (5); **egitasmoaren aurkezpena** (6); **egitasmoaren barruan** (20); **egitasmoaren berri** (15); **egitasmoaren bidez** (6); **egitasmoaren buru** (5); **egitasmoaren eta** (5); **egitasmoaren gainean** (7); **egitasmoaren helburu** (7); **egitasmoaren helburua** (14); **egitasmoaren inguruan** (19); **egitasmoaren inguruko** (8); **egitasmoaren kontra** (11); **egitasmoaren nondik** (6); **egitasmoaren nondik norakoak** (6); **egitasmoari buruz** (9); **egitasmoari buruzko** (9); **estatutu egitasmoaren** (11); **eta egitasmoaren** (5); **jaurlaritzaren egitasmoaren** (11); **jaurlaritzaren egitasmoari** (6); **lege egitasmoaren** (29); **lege egitasmoari** (12); **lurzoruaren lege egitasmoaren** (6); **zuten egitasmoaren** (5)

aurtengo egitasmoen (5); **diren egitasmoen** (5); **egitasmoen artean** (9); **egitasmoen berri** (11); **egitasmoen berri eman** (5); **egitasmoen eta** (8)

---

egitate 1 *iz* gertatzen dena; errealitate bihurtzen dena.

Egitateak begien aurrean eduki behar ditugu beti, honako **egitate** hau, adibidez: gizateriaren existentzia, eta ez hain neurri gutxiesgarrian izan ere, lehengaien arazo bat dela. Joxe Austin Arrieta

Hizkuntzaren tokia mintzairaren **egitateen** artean. Isabel Arrigain

Huts egin duten arrazoimenaren saialdi dogmatiko guztiak **egitateak** dira, eta hauek zentsurari menperatzea beti onuragarria gertatzen da. Ibon Uribarri

Segurua baita izadiaren **egitateek** ez dutela errefusatuko. Ibon Uribarri

Euskal Zikloa egituratzen hasi nahi dugu; Euskal Herriaren **egitate** osoa abiapuntu eta Euskal Herriaren eraikuntza helburu duen ziklo politikoa gorpuzten dela ziurtatu nahi dugu. Berria - Euskal Herria

Gizakiak badoaz, gizarteak ere ahitu egiten dira; **egitate** bakarra da betiko: polizia". Markos Zapiain

Mito horri sinesgarritasuna kentzeko **egitate** batzuk azpimarratu nahi ditut. Berria - Euskal Herria

Nolanahi ere, hemen gure ezagumenaren erabilera hutsa **egitate** gisa eta bere ezagugarria aurkeztu izatearekin askiets gaitezke. Ibon Uribarri

Hala eta ere, **egitate** batzuk ezin ziren ukatu. Oskar Arana

Eratorketa enpirikoa ezin da bateratu, ordea, guk dauzkagun apriorizko ezagutza zientifikoen errealitatearekin, hots, Matematika hutsarekin eta Natur Zientzia orokorrarekin, eta beraz, **egitateak** eratorketa hori errefusatzen du. Ibon Uribarri

Hogeigarren mendeak aurrera egin eta ilundu ahala, gero eta nabariagoa zen munduen dualtasuna, Zaharra eta Berriarena, **egitateekin** bat ez zetorren teoria zela. Iñaki Mendiguren

Lugdunum erromatar kolonia zen, izenez ez ezik, baita **egitatez** ere. Iñaki Mendiguren

Profeten mezu hauek, filosofoen proposizioak bezalaxe, "egiazko" edo "gezurrezko"tzat jo zitezkeen **egitatezko** adierazpen bezala aurkezten ziren. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egitate historikoa zera da, ordea: [...]. Arazo berri horiek filosofoa bultzatzen dute **egitate** politikoaz beste irakurketa bat egitera. Iñaki Mendiguren

Hemengo helburu bakarra Jainkoa (gorets bedi!) munduan gertatzen diren **egitate** berezien eragilea dela baiestea da, mundu osoaren eragilea den bezala. Xabier Kintana

Ezagutza zientifikoaren (fisikoaren) eite sinbolikoa agerian jarriz, Duhemek **egitate** gordina eta **egitate** zientifikoa bereizten ditu. Askoren artean

Zeri eskerrak den hizkuntza, sistema berezi bat **egitate** semiologikoen multzoaren barruan. Isabel Arrigain

Funtsezko **egitate** hori nahikoa da iraultza bat ezinezkoa dela frogatzeko. Isabel Arrigain

Beste morfologiazko **egitate** bat azalduko dugu hemen aurreko hori baino xehetasun gehiagorekin, zeinak aipatu bi ezaugarri horiek baititu: eremu jakin batera dago mugatua eta gizarte antolaketa jakin bati dago lotua. Isabel Arrigain

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere izaera berezia ulertzeko, **egitate** ordena berri bat sartu behar da. Isabel Arrigain

Etxeko agiriak, hildako ez susmagarrienak, aldi egokian igorri eta jasotako gutunak; hitz batez esateko, **egitate** multzoa, hortik antzematen bada egia zein den argitzeko erabilgarri izan daitekeen behar beste aztarna. Andres Urrutia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Historikoki, hizketa **egitatea** beti aurretik joan ohi da, lehenago gertatu ohi da. Isabel Arrigain

Gai oso ondo definitua da hizkuntza, mintzaira **egitateen** multzo heteroklitoaren barruan. Hizkuntza **egitateen** inguruan eratu den zientzia. Isabel Arrigain

Hizkuntzaren lekua giza **egitateetan**. Isabel Arrigain

Paralelismoak edo kointzidentziak, deitu nahi duzun bezala, baina kanpo-**egitate** horiek ez dira bi gizon horietako bakoitzaren bizitzaren barne-egia bezain garrantzitsuak. Oskar Arana

5 egintza.

Neke zitzaidan nire orduak partekatzea, pakete bat tabako erostea dela edo kanpoan ikasten ari den lagunari gutuna idaztea dela, egunaren bueltan egiten diren ehundaka **egitateen** esangura sakona -iraultzailea? kontrairaultzailea? -bilatzen zuen norbaitekin. Aingeru Epaltza

Sakonki azter ditzala bere **egitate**, bide, hitz, egintza eta ohitura guztiak, bilatuz zer dagoen hor Jainkoaz kanpo. Joan Mari Lekuona

Nire ideia honako hau zen: enpresa bat sortzea ahaztuen gaineko liburuak argitaratzeko, haiek desagertu aurretik beren istorioak, **egitateak** eta agiriak salbatu eta gai horiei kontakizun etengabeko batean eitea emateko. Oskar Arana

Harako Jainko hark geure **egitateengatik** jujatuko bagintu, egunen batean hiri handi bateko santu begirale izanen zinateke. Jon Muñoz

Justiziaren **egitate** batzuk krimenak izaten dira; krimen batzuk justiziazko **egitateak** dira. Koldo Izagirre

Frattini Atzerri ministroak ere «ankerkeria **egitate** bat» zela salatu zuen, Erromako Legebiltzarrean Italiak Iraken daukan esku hartzeaz azalpenak ematera joan aitzin. Berria - Mundua

Ankarako gobernuaren hurrengo urratsa izango da «terrorismo **egitateak** » epaitzeko auzitegi bereziak eratzea. Berria - Mundua

6 *egitatean*

Egitatean, gure sentsuzko adigai hutsen oinarrian ez datza ezein irudirik, eskemak baizik. Ibon Uribarri

Egitatean, "Substantziak dirau" esakunea tautologikoa da. Ibon Uribarri

Nolanahi ere, genealogia hori **egitatean** faltsuki egotzi zitzaionez, hark oraindik ere bere uziak baieztatzen jarraitu zuen. Ibon Uribarri

Argi dago lehenengo baldintza, hots, objektuak begietsi ahal izatea eragiten duen bakarra, **egitatean** a priori objektuen oinarrian datzala gogamenean beren formari dagokionez. Ibon Uribarri

Kategorien erabilera transzendental soila, **egitatean**, ez da ezein erabilerarik, eta ez du ezein objektu determinaturik, ezta formaren arabera objektu determinagarria denik ere. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da egitate (3); **diren egitate** (3); **egitate bat** (6); **egitate batzuk** (4); **egitate edo** (3); **egitate eta** (5); **egitate hau** (3); **egitate hauek** (6); **egitate hauen** (5); **egitate hori** (7); **egitate horiek** (7); **egitate horrek** (3); **egitate jakin** (3); **egitate makur** (3); **egitateak eta** (6); **eta egitate** (11)

---

egitazko ik **egiazko**.

---

egite 1 *iz* egintza.

Kontzientzia ere adimenaren **egite** edo aktotzat hartzen du. Jenaro Garate

Frantzisko gure aita dohatsuaren **egite** eta esanak idazteko eginkizuna. Askoren artean

Txerri, arratoi eta beste abere kutsatuen okela jaten dutenak, denak batera galduko dira, bai eta beraien **egite** eta asmoak ere. Elizen arteko biblia

Nola den posible matematikak horren biribilki eta beteginki egokitzea errealitateko **egite** eta gertakariei. Iñaki Segurola

Puztu egiten dira eta harrotu besteen **egite** eta irabaziagatik. Irene Aldasoro

Erregeren **egite** hura bere boterea erakusteko modu bat zela. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Etsenpluaren eta **egite** onen bidez, anaiei Jaunak erakutsi zidan bidetik ibiltzen irakasten. Askoren artean

Bere hitz eta **egite** on guztiengatik, Jainkoari bakarrik eman nahi zion aintza eta ohorea. Askoren artean

Beren **egite** gaiztoz edo etsenplu txarrez Ordena santua profanatzen zuenak santuaren madarikaziorik gogorrenaren epaia jasotzen zuen. Askoren artean

Gizakiei agertuz zure **egite** ahaltsuak, zure erregetza ospetsua. Elizen arteko biblia

Eta hortik aurrerako etorri leun biguna, haren **egite** gogorrak nahiz amodioak eman zituena. Patxi Ezkiaga

Nonahi eta noiznahi jazartzen zieten **egite** makurrei. Jose Morales

Egite heroiko hura egotzi nionez geroztik, beti geratu zitzaidan mutil harekiko jakin-min bat: nolakoa zatekeen ezagutu izan banu. Xabier Mendiguren Elizegi

Jainkoaren inpotentzia jendearen sufrimenduari buruz, **egite** kreatzailearen ondorio bat da. Piarres Aintziart

Karitatezko **egite** eskuzabal baina diskretuetan. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etikak ezin badu inola inoiz giza **egite** bat metro horrez neurtu eta epaitu; zein da, hortaz, giza egiteen epailea? Jenaro Garate

Hizkuntza bakoitza dialekto **egite** konplexu bat da, zeren aldaketa linguistikoa oso modu konplexuaz banatua agertzen baita hiztunen multzoan beti. Isabel Arrigain

Hizketa berrikuntza batetik segitzen da, lehenik, berrikuntza hori agertu dela, eta, gero, hizkuntza **egite** bihurtzen dela, gizataldeak aldaketa hori bereratzekotan. Isabel Arrigain

4 ***bat-egite*** *(orobat **bategite** g.er.)*

Haziak ezberdinak izanik, tarte, norabide, lotura, pisu, talka, **bat egite** eta mugidek ere ezberdinak izan behar dute. Xabier Amuriza

Bat egite honekin SCH euroguneko lehendabiziko banku bilakatuko da. Berria - Ekonomia

Pertzepzio bakar batean "bateratzen" dira distiraldi guztiak (**bat egite** hori erretinaz geroztiko mailetan gertatzen da). Josu Zabaleta

Gero, koitoak beste atsegin klase bat emango dio, **bat-egite** eta intimitate sentipenak ematen duena. Luis Elberdin

Berrien eta lehendik geundenon arteko **bat egite** hori oso ona izan dela uste dut. Berria - Kirola

Bat-egite hori amaierako puntua da gure biziarentzat. Xabier Kintana

-Antonio! -oihukatu zuten J-eta-Lk, **bat-egite** deigarriz-. Jon Muñoz

1994: Errusiarekin **bat-egite** ekonomikorako akordioa sinatua. Berria - Harian

Dedukzio metafisikoan kategorien jatorria a priori azaldu zen pentsatzearen funtzio logiko orokorrekin duten **bat egite** osoaren eskutik oro har. bat egiten zuten biek are atsegaleago, zentzukoiago, bortitzago, handiago, aurrean ikusten nuen haragizko **bat-egite** hura baino. Ibon Uribarri

EBk erabaki zuen Hungariarekin **bat-egite** negoziazioak hastea. Berria - Mundua

Batzordeak eragotzi nahi du enpresen **bat-egite** eta biltze mota batzuk arauditik kanpo geratzea. Berria - Ekonomia

Hamabost urte inguruko adinean hasten da **bat-egite** prozesu hori (oineko hezur handietariko batean), eta ez da bukatzen hogeita bost urteko adina arte, bularrezurrak eta lepauztaiak bat egiten duten arte. Irene Aldasoro

Kutxen **bat-egite** prozesua «lozorroan» dagoen arren, ez du pazientziarik galdu Carlos Etxepare Gipuzkoa Donostia Kutxako presidenteak. Berria - Ekonomia

5 *egitezko* ik **egitezko**.

6 ***huts egite*** ik **hutsegite**.

7 ***men egite*** *iz*

Baina **men egite** hori oso bakanetan baizik ez da oraino zentzumenetaraino heldu. Jon Muñoz

Lazgarria Lopezen handikeria, eta PSEri doako **men egite** lotsagarria San Gilena. Berria - Harian

Kontsumoan ez ezik, ekoizpenean eta eraldaketan ere, zenbat eta gutxiago esku hartu [...] orduan eta protagonismo txikiagoa, isiltasun handiagoa, zernahiri **men egite** errazagoa, erantzuteko gaitasun ahulagoa izango dugu. Edorta Agirre

8 ***uko egite***

Bere buruari **uko egite** hark kezkatu egiten ninduen, gure familian nahiago izaten baitzen mutilek ikasketak amaituta izatea "bizitzako borroka-plaza latzera" irten aurretik. Ander Irizar

Susmoak dauzkagu **uko egite** hauek, gutxi edo aski, lotuta daudela mugimendu nazionalistak iazko urriaz geroztik jasaten duen justizia jazarpenarekin. Berria - Mundua

Hainbat eta hainbat kastuk adierazi izan du sabelpeko gozamenari **uko egite** antinaturalak bihotzeko eta adimeneko pozaldi delikatuagoak dakartzala ondorioz. Markos Zapiain

-Ikusiko diagu hain koldarrak izanen direnetz espainolak indarka sartuko direnean! -aldarrikatu zuen prokuradoreak, Uztaritzeko azken topaketa haietarik batean, armadan sartzeari **uko egite** orokorra aipatuz. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde egite (9); **atzera egite** (5); **bat egite** (55); **bat egite aldera** (4); **bat egite eta** (5); **bat egite hori** (5); **bere egite** (5); **beste egite** (4); **besteen egite** (3); **boto egite** (7); **edo egite** (3); **egite aldera** (33); **egite bat** (22); **egite batean** (4); **egite baten** (4); **egite edo** (6); **egite eta** (25); **egite guztien** (3); **egite guztietan** (3); **egite haren** (3); **egite hark** (4); **egite hau** (7); **egite hauek** (6); **egite hauen** (3); **egite honek** (3); **egite hori** (31); **egite horiek** (3); **egite horien** (3); **egite horrek** (12); **egite horren** (4); **egite horretan** (3); **egite hura** (8); **egite hutsa** (6); **egite hutsagatik** (6); **egite hutsak** (5); **egite onak** (3); **eta bat egite** (3); **eta egite** (12); **eta huts egite** (3); **ez egite** (5); **gogor egite** (4); **hitz egite** (16); **hitz egite aldera** (4); **hitz eta egite** (4); **huts egite** (37); **itxura egite** (4); **kontra egite** (4); **men egite** (4); **oldar egite** (27); **oldar egite batean** (3); **oldar egite hauek** (4); **putz egite** (3); **sozietate egite** (4); **topo egite** (4); **uko egite** (6); **zerbait egite** (3); **zerbait egite aldera** (3); **zin egite** (10); **zure egite** (4)

---

egitear *adlag* egiteko zorian.

Nire likiskeriaz harro egoteraino nintzen zitala, **egitear** neukana ia ohorezko bereizgarritzat hartzeraino zitala. Matías Múgica

Egitear nengoela arnas hartzen nuen eta berriro ekiten nion eta gero eta hurbilago nengoen, ukitzear eta eskuratzear. Imanol Unzurrunzaga

Izan ere, sasoi honetarako laborearen uzta **egitear** izan behar zuten orduko nekazariek. Pello Zabala

Botin **egitear** den kapital hedatzearekin, lehendik handi zena erraldoi bihurtuko da. Berria - Ekonomia

Ia erabat patuaren mende zeuden hainbat bizitza eztanda **egitear** egon zitezkeen, eta haiek ez zekiten ezer, ezta arrastorik ere. Berria - Gaiak

Nuño Bertaren ondotik burumakur alde **egitear** zela, mezulari bat iritsi zen. Martin Anso

Errusiako Estatuak leporatzen diona aurrera ateraz gero, porrot **egitear** egon liteke Jukos. Berria - Ekonomia

Harridurak eta haserreak estalitako aurpegiaz, harrapakinaren gainera salto **egitear**, muturrean atzaparkada jasotzen duen animalia basatia zirudien. Agustin Otsoa

Gerlarik gerla beste aldetik, munduan zehar hainbat zoritxarren lekuko izan zena goiti **egitear** zegoen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde egitear (5); **egitear egon** (5); **egitear zela** (3)

---

egitearren *adlag* egiteko.

Horregatik joaten zela Villa Lecuonara, eta ez soilik ezkontza aurreko prestaketa **egitearren**. Bernardo Atxaga

Beharbada horregatik fusilatzen gintuzten, leku pixka bat **egitearren**. Koldo Izagirre

Nik, berriz, pikuz bete nituen otarreak berriro, soldaduei saltzera joateko, diru pixka bat **egitearren**, amaren iritziaren kontra baina. Juan Kruz Igerabide

Jarraian, zerbait **egitearren**, Western Union-era jo nuen, telegramak bidaltzera. Joxe Austin Arrieta

Etsaiaren gibela jateko ohitura ere bazen herri askotan, haren indar ezkutuen jabe **egitearren**. Patziku Perurena

Gau hartako gure elkarrizketa bitxia kontatuko zion Hilde andereari, mesede bat **egitearren**. Alberto Ladron Arana

Bere egoeraren etsamina arretatsuagoa **egitearren**. Ibon Uribarri

Kartzelari ihes egiteko modu bakarra hauxe jarri zidaten: zuen bandan infiltratzea haientzat lan **egitearren**. Josu Landa

Ingurumenaren arloan gardentasunaren garrantzia azpimarratzeko ahalegina egiten ari da, herritarrekin bat **egitearren**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horrelako nahaste-borrastean sartu, "inori mesede **egitearren**". Gotzon Garate

Dekoraziorako aukeratu zuen kretonazko ehuna, berriz, ez zuen hainbeste aukeratu diseinu garaikideari men **egitearren**. Mirentxu Larrañaga

Karrikako bazter banatara aldendu zineten zaborketako zaldiari bide **egitearren**. Koldo Izagirre

-Zer ez huke asmatuko Danelen alde **egitearren**! Anjel Lertxundi

Amets gaiztoen iluntasunetik ihes **egitearren**. Sonia Gonzalez

Garagardo edalontzia altxatu zuen biekin batera topa **egitearren**. Joxemari Iturralde

Erdi Aroko irudia (beste zibilizazio urrunago batzuetakoaz ez hitz **egitearren**) guztiz desberdina zen gaur egungo irudiarekin alderatuta. Josu Zabaleta

Nik, kontra ez **egitearren**, baietz erantzuten nion, bilatuko nuela, oraindik inor ez nuela topatu baina. Juan Kruz Igerabide

Agindua hautsi eta emandako hitzari huts ez **egitearren**. Askoren artean

Bere bidea utzi eta beste bide bat hartzen zuen, harekin topo ez **egitearren**. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde egitearren (5); **bat egitearren** (12); **egitearren edo** (3); **ez egitearren** (30); **hitz egitearren** (5); **ihes egitearren** (7); **mesede egitearren** (3); **mesedea egitearren** (3); **pixka bat egitearren** (3); **topo ez egitearren** (3); **zerbait egitearren** (6)

---

egiteke *adlag* egin gabe.

Soinurik **egiteke** itxi da atea gazte bien atzetik. Koldo Izagirre

Zirkinik **egiteke** jarraitu zuen bestaldera begira. Migel Angel Mintegi

Hurbildu zitzaion eta denboraldi batez biak elkarri begira geratu ziren, biak elkarren zantzuan, zirkin **egiteke**. Felipe Juaristi

Horrela goaz bide osoan, hitzik **egiteke**, fabrikaraino. Eskarne Mujika

Astean behin edo birritan joaten nintzen lehen, hutsik **egiteke**. Hasier Etxeberria

Mantso-mantso kontatuko dut, tranparik **egiteke**. Mirentxu Larrañaga

Leun ibili zuen eskua txaluparen sabelean harat-honat nire lagunei kasurik **egiteke**. Koldo Izagirre

Maistren galderei erantzuteke, haien adierazpenei kasu handirik **egiteke**. Felipe Juaristi

Bitartean berak, libertino putz axolagabe antzo, atseginaren zidor pinpirintsua ibiltzen duela, jaramonik **egiteke** bere aholkuari. Juan Garzia

Arrazoi ideologiko huts-hutsez, eta hogeita hamar urte luzez mundu zabalean han-hemenka lorturiko datuei jaramon izpirik ere **egiteke**, sobietarrek erabaki zuten, azken gerraren ondoren, herrialde komunistetatik uxatu beharreko zientzia burges bat zela genetika. Juan Garzia

Terrorismoa saihestu nahi badugu, lan asko geratzen da **egiteke** oraindik. Berria - Harian

Erabaki politikoa juridikoki janztea zen **egiteke** zegoen gauza bakarra. Berria - Euskal Herria

Gobernuaren eta erakundeen lana baino transbertsalagoa da **egiteke** dagoen lana. Ana Urkiza

Orain arte egin ditudanak ez zaizkit baliatu, ez bada **egiteke** ditudanak are mingarriagoak gerta dakizkidan. Jon Muñoz

Egiteko dagoena **egiteke** dago. Iñaki Arranz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko egiteke (3); **egiteke dago** (4); **egiteke dagoela** (3); **egiteke dagoen** (4); **egiteke duten** (3); **egiteke zegoen** (3); **handirik egiteke** (3); **jaramonik egiteke** (16); **kasurik egiteke** (5); **kontra egiteke** (3); **oraindik egiteke** (4)

---

egiteko *iz* eginkizuna.

Eta orduantxe eman zidaten nire azkeneko **egiteko** hau: komun garbitzailea. Joxan Elosegi

Segi hemendik, bada zigilupean ezarria dago **egiteko** honen gainerako gorabehera guztia. Juan Garzia

-Ongi duk, Mikel Strogoff -esan zion duke handiak-, adoretsua eta saiatua haizela erakutsi duk **egiteko** honetan. Karlos Zabala

Dena den gauza anitz bada **egiteko** honekin Euskal Herrian ere bere iduriko. Berria - Kultura

Ongi baitakizue zeuek beharturik ekin diodala **egiteko** honi, horretarako neure burua behar bezain jantzia ikusi ez arren. Askoren artean

Buruak agintzen dit alde **egiteko** handik eta alde **egiteko** handik, baina hankek ezin dute, ez dut mugitu ere egiteko indarrik. Anjel Lertxundi

Eta neuk egin nuen **egiteko** handi hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta salmentari dagokionez, ez du **egiteko** handirik. Oskar Arana

Armak zibilizatzeko darabiltenei dagokie oraindik ere **egiteko** ederrena, eta nabaria da Asiaren erdialdeko herriek dena galtzeko dutela eta deus ez irabazteko, inbasio honekin. Karlos Zabala

Balaren **egiteko** nagusia horixe baita: bota egingo zaituen mehatxupean zure borondatea bereganatzea. Pako Aristi

Saturnoren Titan ilargia aztertzea izango da Cassini espazio zundaren **egiteko** nagusienetakoa, datozen lau urteetan. Berria - Gaiak

Egiteko zaila jarri zioten O'Keeferi eta haren ordezkoak ere ez du lan erraza izango. Berria - Gaiak

Horixe zen egunean zehar nuen **egiteko** garrantzitsuena. Joxan Elosegi

Aske pentsatzeko eskubidearen bermatzea zela preseski estatuaren **egiteko** garrantzitsuenetarik bat, terrorismoaren kontrako ekinetan. Itxaro Borda

Patatak zuritzen edo are **egiteko** konplexuagoetan murgilduta jarraitzen nuen. Joxean Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiteko garrantzitsua (9); **egiteko haiek** (3); **egiteko haien** (3); **egiteko haietan** (8); **egiteko handia** (4); **egiteko handirik** (3); **egiteko haren** (5); **egiteko hark** (3); **egiteko hartan** (16); **egiteko hau** (11); **egiteko hoberik** (3); **egiteko honen** (3); **egiteko honetan** (6); **egiteko hori** (36); **egiteko horiek** (4); **egiteko horrek** (3); **egiteko horretan** (25); **egiteko horretarako** (9); **egiteko hura** (11); **egiteko nagusi** (4); **egiteko nagusia** (30); **egiteko nagusiak** (6)

egitekotsu *izond* lan handia ematen duena.

Belarria haren azalera hurbiltzen dutenek, haren zurrumurru **egitekotsua** sumatzen omen dute aurki. Juan Garzia

Ezertxo ere ez, bada, 1890ean Casale Monferratoko bizimodu **egitekotsuaren** ezaugarri zenetik. Juan Garzia

Neure bizimolde berriaren bideratzeko, ez nuen esku hertsirik eta **egitekotsurik** nahi. Joan Mari Irigoien

Zeren, ba ote zegoen demonio gaixtoaren egoitza hura estaltzea baino egite **egitekotsuagorik** eta ederragorik, apez jaun Bartolomek berak erran zuen bezala? Joan Mari Irigoien

Zeren, nola soldaduaren egitekorik **egitekotsuena** lehen gizona hiltzea den, [...]. Joan Mari Irigoien

Pertsona horiek Albert eta ni ginen, ezkutu, **egitekotsu**, multiforme, beste denbora-izari batzuetan. Juan Garzia

---

egitezko *izlag* egitearen bidezkoa.

Kristoren zaldun kementsuak ez zion errukirik bere gorputzari; berea ez balitz bezala, bai hitzezko eta bai **egitezko** irain guztien menpe jartzen zuen. Askoren artean

Lagun diezaieten guztiei etortzen lehenik espirituko pobrezia osora, eta Jainko handiak gogoa balu eta hautatu nahi balitu, baita **egitezko** pobreziara ere. Patxi Altuna

Bi hoben mota: bekatu jatorrizkoa eta bekatu **egitezkoa** bereizten direla. Piarres Xarriton

Gizakiaren giza ekintza oro (gogapenezkoa izan, hitzezkoa edo **egitezkoa**) maitatzea dela. Jenaro Garate

Eskuliburuan aipatzen direla anitz bekatu mota eta horrela nabari da batzuk bihotzekoak direla, besteak ahozkoak, **egitezkoak** edo ohiturazkoak, batzuk lanekoak eta besteak haiekilakoak, batzuk haragizkoak, besteak izpirituzkoak, batzuk eskasez eginak, besteak soberakinez. Piarres Xarriton

Izan nintekeen **egitezko** euskalduna, baina ez: nahiago dut, horretara jarri ezkero, "euskarazko tipo bat" naizela esatea. Iñaki Segurola

---

egitura 1 *iz* gorputz, gauzaki, multzo edo kideko baten zatiak edo osagaiak antolaturik dauden era. ik**estruktura**.

Interesgarriak dira gizakiaren **egitura**, funtzio, egokitzapen eta mekanismo biokimikoak, baina ez apartekoak, biologoarentzat behintzat. Irene Aldasoro

Garunaren **egituraren** ezaugarri batzuk. Irene Aldasoro

Formulazio honen araberakoak dira, era berean, gainerako argudioak (inventio) eta bertsoaren **egitura** (dispositio). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Konparaketak ez dira bakarrik hiztegi mailan egiten, baita mintzairaren estrukturan, esaldien **egituran**, gramatikan eta hotsetan. Herria

Egitura eratzen duten gaietan, hezurra da interesgarrienetariko bat ingeniariarentzat, indarraren eta pisuaren artean egiten duen hautsimautsi onagatik. Irene Aldasoro

Espezie berean, aise aurki daitezke oso funtzio desberdinen kargu egonik hala ere hurbil-hurbilekoak diren hainbat **egitura**. Juan Garzia

Polizia filmek beren **egitura** badaukate. Herria

Testuaren **egitura**, beraz, ez da oso korapilatsua, istorio kronologikoa da. Berria - Kultura

Horrek play-offen **egitura** aldatzea ekarriko luke. Berria - Kirola

Itxurapen-maila horietatik sortzen diren **egiturak** elkarrekin lotzen dituen mekanismoa 'erregela formaldatzailea' da. Itziar Laka

Filosofiari, eguneroko bizitzan, ez zaio galdetzen teoria zientifikoen **egituraz**. Askoren artean

Sortu zenetik -XIX. mende-hasieratik, alegia-, biologiak ez dio utzi **egituretan** barrentzeari eta funtzioetan sakontzeari. Juan Garzia

Itzulpenak egingo dituen **egitura** bat sortu behar da Iparraldean, berantetsi gabe. Berria - Euskal Herria

Sasi-erakundea sasi-erakundearen gainean, Ipar Euskal Herria aldarrikapen fasea utzi eta **egiturak** eraikitzen hasi da. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Metro berriaren betoizko **egitura** erraldoien gainean ziren batzuk, soka bakar batekin zintzilikatuak. Ramuntxo Etxeberri

Giltzadura bakoitza lotzen duten torloju eta azkoinak estutzen badira, **egitura** zurrun eta jokorik gabea eratzen da. Irene Aldasoro

Hezurra **egitura** gogorreko material bat da. Irene Aldasoro

Egitura sendokoa dirudi gorputzak kanpotik begiratuta, baina gure itsas jatorria islatzen du, oraindik ere, haren barruko antolamenduak. Irene Aldasoro

Entzima bakoitzak, proteina bakoitzak, bere **egitura** berezia du. Juan Garzia

Ereduak ez dira izaten **egitura** fisikoak, analogia edo teoriak baizik. Irene Aldasoro

Haurraren **egitura** kognitiboa aztertzeko. Askoren artean

Gizarte Helenikoaren **egitura** sozialean. Iñaki Mendiguren

Egitura fiskal egoki bat izan gabe, ezin izango dira helburuak bete. Berria - Ekonomia

Proposizioen **egitura** formala. Xabier Arregi

Banaturik adierazten ditu perpausen **egitura** morfemikoa eta morfemen **egitura** fonemikoa. Itziar Laka

Badira **egitura** berriagoak ere, askotan bertsolariek beraiek sortuak, txapelketetarako gehienean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Itsasoan, ia zeharo neutralizatuta dago grabitatea; horren ondorioz, oinarrizko **egiturak** baino ez dira behar leku batetik bestera mugitzeko. Irene Aldasoro

Oinarrizko **egitura** hori erreferentzia nagusi bihurtu da eztabaida metafisikoetan. Askoren artean

Berez, soldatutako altzairuzko **egiturak** dira. Berria - Gaiak

Burdinurtuzko **egitura** izugarria itotzen zen, urdintzen zen, egunsentiaren sugarretan; profil ilun bat besterik ez zen. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Habe- zutabe- eta zubi-lana egiten duten hezurretako arazoak ezagun zaizkio **egitura**-ingeniariari. Irene Aldasoro

Kopuru mugatuko elementu batzuen konbinatoriari zor zaio halako **egitura**-aukera zabala, eta halaxe ekoitziak dira zelulen osagai nagusiak. Juan Garzia

Egitura-proteinak ziren gehienbat, hala nola giharrenak. Juan Garzia

Funtsean, odol-hodirik gabeko **egitura**-mintz bat da epidermisa. Irene Aldasoro

Egitura-gai bat den aldetik, bi zentzutan da garrantzitsua hezurra. Irene Aldasoro

Aspaldiko ideia da, noski, **egitura**-arrazoiengatik material bat beste baten ezaugarriak hobetzeko erabiltzea. Irene Aldasoro

Bien bitartean, hondatzen jarraitzen dute giltzadurek, behar bezalako lubrikaziorik ez dutelako edo beste **egitura**-akats larriago batzuk dituztelako. Irene Aldasoro

Martinek bazuela adimen musikal bat, Bachen musikaren **egitura**-arauez jabetzeko modukoa. Xabier Olarra

Ezagutza hori antzeko beste ezagutzen **egitura**-patroiei egokitu beharra. Askoren artean

Erregelok, corpuseko perpausen arteko **egitura**-harremanak adierazten dituzte. Itziar Laka

Industriak «**egitura** krisia» duela dio Arabako patronalak. Berria - Ekonomia

Globalizazioa gizarte antolamendurako sistemen **egitura**-aldaketa sakonen isla da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egitura-maila abstraktuak elkarrekin erlazionatzeko. Itziar Laka

Giza hizkuntzan, elkarren aldamenean ez dauden hitzen arteko **egitura**-menpekotasunak daude. Itziar Laka

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erdi eginda zegoen eraikin baten habe-**egitura** gorriari leihotik begira. Lopez de Arana

Erdi Aroko Mendebaldeko hiri libreek eskaintzen dute gizarte-posizioa eta finantza-metaketa nahastera jotzen duen gizarte-**egituraren** lehen adibidea. Koro Navarro

Gure borroka elkarte **egituratik** instituzio mailara pasatzea izanen da. Botere-**egiturak** oro iraultzeko aldarriaren ordez, etsipen-kutsu bat zabaltzen zuen Barojak. Berria - Harian

Nola bultzatu komunitateak eta bere gizarte zein instituzio **egiturak**, elkarbizitza bakezkoago eta orekatuago bat ahalbidetzearren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Konkurrentziazko mekanismoen hedapenak bata bestearen ondoren hausten ditu gizarteratze-**egitura** tradizionalak. Koro Navarro

Gremioek, Erdi Aroaz geroztik industria-jardueran nagusi izan arren, ezin zituzten beren abantailak gorde, ekoizpen-**egitura** guztiz zatikatu baten baitan ez bazen. Koro Navarro

Errealitatean beste merkatu-**egitura** batzuk dira nagusi: monopolioak, oligopolioak [...]. Iñaki Heras

Futbola behin betiko utzi edo Athleticen kirol **egituran** jarraitu erabaki beharko du. Berria - Kirola

Helburua zientziaren barne-**egitura** argitzea da. Askoren artean

Bakoitzaren barruan zuhaitz-**egitura** bat dago. Askoren artean

Mosaiko-**egiturak** aukera ematen die geneei hainbaten arteko eragin-trukeak izateko. Juan Garzia

Mortero eta material zeramikoz egiten ziren erromatarren horma-**egitura** tipikoak. Santiago Iruretagoiena

Gero bazarra bisitatu dugu, Irango handiena eta munduko zaharrena ganga-**egitura** dutenen artean. Jon Arretxe

Azentu horrek ez baitio silaba-**egiturari** kalte egiten. Lourdes Oñederra

Hainbat organo garrantzitsu babesten ditu hezur-**egiturak**, hala nola garuna, bihotza edo begiak. Irene Aldasoro

Airebide asko izateak belaki-**egitura** ematen die birikei, eta azalera ikaragarria gas trukerako. Irene Aldasoro

Molekula-**egiturak** eta haien funtzioak. Juan Garzia

Gene-**egiturak** -"alelo" direlakoak-, ugalketarik oparoena ahalbidetzen baitzuten. Juan Garzia

Film batzuek hobeto "kudeatzen" dute emozioen zikloa, ikusleari, narrazio-**egitura** ongi menderatuz. Josu Zabaleta

Idazleek paragrafoa hartzen dutelako argudio-**egituraren** unitate gisa. Askoren artean

Baldintza hau betetzen ez bada, ezingo dugu erregelen ezarpenarekin loturik dauden (15) ereduko diagrametatik eratorritako perpausen osagai-**egitura** egokiro berreskuratu. Itziar Laka

Gramatika-**egituraren** aurkikuntzak bete behar omen dituen urratsen artean. Berria - Gaiak

Gramatikariaren lanaren emaitza nagusiak "hizkuntz **egituraren** teoria orokorra izan behar du, [...]". Itziar Laka

Formaldatze batek perpaus-**egituraren** arauek emandako hurrenkera baten itxurapena hartzen du abiapuntutzat. Itziar Laka

Polizia eta zigor-**egitura** indartu bati. Xabier Arregi

Euskarak CVCV **egiturarako** joera nabarmena badu ere, gertatzen direla trabari bilkurak morfema elkarketaz. Lourdes Oñederra

Bertsolariak ez du aski bere ideiak 10/8 **egiturara** tolestearekin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Chomskyk osagai-**egitura** eredua perpaus horietatik sortzen den itxurapena "formaldatzen" duten eragiketekin bateratzen du. Itziar Laka

Departamenduak bidean emaiten hasiak ditu "Scènes de pays" deitu **egitura** batzu, euskal prentsan deitzen ditugunak: "Lurralde Kultura Egiturak". Herria

6 *egiturazko*

Egiturazko funtsak. Berria - Ekonomia

Egiturazko lotura bat sortzen dela inbertsio produktiboaren eta inportazio- ahalmenaren artean. Koro Navarro

Bere finantza-sistemaren **egiturazko** akatsen mende. Koro Navarro

Egiturazko arazoa ez denez gero, ez da behar babes berezirik. Berria - Euskal Herria

Garai keynestarretik heredatutako **egiturazko** zurruntasunei egotzi zitzaizkien europar ekonomiek krisia gainditzeko eta langabezia murrizteko zituzten eragozpen bereziak. Koro Navarro

Egiturazko aldaketa hori honako premisetan oinarritu behar duela proposatu zuen Arroyok: [...]. Berria - Euskal Herria

Euskal ekonomian «**egiturazko** erreformak» abiatzeko eskatu zuen Confebaskeko presidente Roman Knörrek atzo. Berria - Ekonomia

Egiturazko langabezia-tasa handiko denboraldiak. Iñaki Heras

Gramatika baten zuzentasuna neur dezakegu **egiturazko** homonimia guztiak benetako anbiguotasunak ote diren galdetuaz. Itziar Laka

Gai ziren, zuzenean, egutegian eskala-handiko erregulartasun **egiturazkoak** atzemateko, arau inkontzienteak eta algoritmoak ateratzeko. Xabier Olarra

Gerta lekioke halako ahaztura -fisiologiko eta psikologikoa, estrategiko eta **egiturazkoa** dena aldi berean-, hein batean, lehentxeago edo geroxeago, pertzepzio modu berezi bat eratzeko edo irudikatzeko gauza ez den orori. Xabier Olarra

Gorputzeko ehun eta osagai **egiturazko** ia guztiak hainbat eta hainbat helbururen zerbitzura daude. Irene Aldasoro

1980ko hamarraldian Diru Funtsak bere mekanismoak ugaldu zituen, **egiturazkoagoak** ziren neurrien bitartez. Koro Navarro

Koarteto batean agertzen den guztia da **egiturazkoa**; edozein kolore egituraren zatia da. Berria - Kultura

· Osagai-**egiturazko** gramatika-eredua. Itziar Laka

7 *azpi egitura* ik **azpiegitura**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adnaren egitura (5); **aldeko egitura** (4); **antzeko egitura** (9); **arteko egitura** (5); **atal egitura** (4); **atomoaren egitura** (4); **baina egitura** (13); **baina osagai egitura** (4); **barne egitura** (16); **barruko egitura** (4); **baten egitura** (17); **behin egitura** (5); **bere egitura** (22); **beren egitura** (7); **berezko egitura** (6); **bertze egitura** (11); **beste egitura** (12); **bi egitura** (15); **botere egitura** (8); **clefe egitura** (4); **da egitura** (23); **dela egitura** (5); **den egitura** (15); **dira egitura** (8); **diren egitura** (8); **dituen egitura** (14); **dituen egitura bat** (4); **du egitura** (16); **duen egitura** (18); **dugun egitura** (4); **dute egitura** (7); **duten egitura** (10); **edo egitura** (18)

egitura aldaketa (8); **egitura aldaketak** (4); **egitura aldatu** (6); **egitura aldatzeko** (8); **egitura aldetik** (7); **egitura argia** (4); **egitura aztertu** (4); **egitura baino** (4); **egitura bakar** (4); **egitura bakarra** (6); **egitura bat** (71); **egitura bat sortu** (6); **egitura batean** (6); **egitura batek** (10); **egitura batekin** (4); **egitura baten** (21); **egitura bati** (5); **egitura batzuk** (8); **egitura bera** (21); **egitura berezi** (12); **egitura berezia** (7); **egitura berri** (22); **egitura berri bat** (6); **egitura berria** (26); **egitura berriak** (20); **egitura berrian** (4); **egitura berriaren** (13); **egitura da** (13); **egitura dauka** (5); **egitura dela** (5); **egitura deskribatzeko** (4); **egitura du** (8); **egitura dute** (4); **egitura edo** (8); **egitura ekonomiko** (5); **egitura ere** (11); **egitura eta** (99); **egitura ez** (15); **egitura ez da** (5); **egitura ezberdina** (5); **egitura federala** (6); **egitura formaldatzailea** (4); **egitura guztia** (6); **egitura guztiak** (5); **egitura guztiz** (5); **egitura handi** (5); **egitura hau** (9); **egitura honek** (4); **egitura honen** (5); **egitura honetan** (4); **egitura hori** (33); **egitura horiek** (24); **egitura horien** (9); **egitura horietan** (5); **egitura horrek** (23); **egitura horren** (21); **egitura horretan** (16); **egitura horretara** (4); **egitura horri** (5); **egitura hortan** (5); **egitura instituzional** (4); **egitura izango** (4); **egitura jakin** (6); **egitura maila** (5); **egitura mailan** (8); **egitura metaliko** (4); **egitura nola** (4); **egitura ofizial** (4); **egitura osatzen** (5); **egitura oso** (11); **egitura osoa** (8); **egitura politiko** (22); **egitura politikoa** (11); **egitura politikoen** (4); **egitura publiko** (10); **egitura publikoak** (6); **egitura sendo** (5); **egitura sendoa** (4); **egitura sortu** (5); **egitura sortzea** (4); **egitura sozial** (7); **egitura sozial eta** (4); **egitura txiki** (4)

egungo egitura (5); **egurrezko egitura** (7); **eraikinaren egitura** (6); **ere egitura** (9); **estatuaren egitura** (7); **eta bertze egitura** (4); **eta egitura** (89); **eta egitura eta** (4); **euren egitura** (5); **euskal egitura** (5); **euskararen egitura** (5); **ez da egitura** (6); **ez dira egitura** (4); **gizarte egitura** (18); **gizartearen egitura** (6); **gorputzaren egitura** (5); **haien egitura** (8); **hainbat egitura** (7); **halako egitura** (6); **haren egitura** (9); **hiru egitura** (4); **hizkuntz egitura** (4); **hizkuntzaren egitura** (10); **holako egitura** (6); **horrelako egitura** (6); **horren egitura** (7); **ipe egitura** (6); **iraultza zientifikoen egitura** (4); **izeneko egitura** (7); **moduko egitura** (4); **nolako egitura** (5); **ohiko egitura** (5); **oinarrizko egitura** (8); **osagai egitura** (68); **osagai egitura eta** (7); **osagai egitura mailan** (6); **oso egitura** (10); **perpausen egitura** (5); **silaba egitura** (13); **sintaxi egitura** (4); **testuaren egitura** (4); **zen egitura** (6); **zenbait egitura** (5); **zientifikoen egitura** (5); **zuen egitura** (9); **zurezko egitura** (6)

bere egiturak (4); **bere egituran** (5); **diren egiturak** (5); **duten egiturak** (4); **egiturak berak** (4); **egiturak dira** (10); **egiturak ere** (6); **egiturak eta** (20); **egiturak ez** (6); **egiturako kide** (8); **egiturako kide izatea** (5); **egituran eta** (8); **eta egiturak** (13); **etako logistika egiturako** (4); **logistika egiturako** (6); **lurpeko egiturak** (4); **osagai egiturak** (5); **osagai egituran** (7)

bi egituren (4); **dauden egituren** (4); **duen egituraren** (4); **duten egituren** (4); **egituraren aldetik** (5); **egituraren arabera** (8); **egituraren araberako** (4); **egituraren aurka** (4); **egituraren eta** (6); **egituraren teoria** (12); **egiturari buruzko** (13); **egiturari dagokionez** (9); **egiturarik gabeko** (4); **egituraz eta** (8); **egiturazko aldaketa** (4); **egiturazko aldaketak** (6); **egiturazko arazoa** (6); **egiturazko arazoak** (7); **egiturazko doikuntza** (4); **egiturazko erreformak** (6); **egiturazko esanahia** (6); **egiturazko gramatika** (6); **egiturazko homonimia** (6); **egituren artean** (9); **egituren arteko** (8); **egituren eta** (6); **eta egituraren** (6); **eta egiturazko** (6); **eta egituren** (5); **gramatika egituraren** (6); **hizkuntz egituraren** (18); **hizkuntz egituraren teoria** (7); **hizkuntz egiturari buruzko** (4); **osagai egituraren** (16); **osagai egiturari** (4); **osagai egiturazko** (30); **osagai egiturazko gramatika** (6)

---

egituradun *izlag* egiturakoa.

-Zatoz, erakutsidazu -esan zion neskak, urre-koloreko **egituradun** betaurrekoak zituen gizonari begi-keinu bat eginez. Koro Navarro

Horregatik dute maiztasun handiagoa CV silabek, VC edo are CVC **egituradunek** baino. Lourdes Oñederra

Obra sei liburuz osatzen da, denak antzeko **egituradunak** : [...]. Xabier Amuriza

---

egituraketa 1 *iz* egituratzea.

Sormenari forma emango liokeen **egituraketa** bat. Andoni Egaña

Ikasleek irudien analisia eta **egituraketa** , eszenaren idazkera nozioak menperatzen ahalko dituzte. Herria

Herri txikien kartzela gisa eratutako Espainiako **egituraketa** krisian dago eta horrekin batera **egituraketa** hori sostengatzen duen Espainiako Konstituzioa bera ere bai. Berria - Harian

Egun, elikadura ordena ekonomiko eta sozialaren **egituraketa** edo desegituraketaren funtsezko elementua da. Edorta Agirre

Egungo EBren **egituraketan** , «Europako kultura proiektua eraikitzea» funtsezkotzat jo du Martik. Berria - Kultura

Afganistango Droga Poliziaren **egituraketan** eta trebakuntzan. Berria - Mundua

Nekazari kooperatiben **egituraketa** berritzeko egitasmoa. Berria - Ekonomia

Unibertsitatearen **egituraketa** bereziki irakaskuntzan oinarritzen dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Politikariek Estatuaren **egituraketan** eta autonomien antolakuntzan jarri dute arreta eta lehentasuna orain arte. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzaren Estatutu egitasmoa «erabat sar daiteke Europako Itun Konstituzionalean, Estatu partaideek boterearen **egituraketa** beren kasa antola dezaketela» dioelako. Berria - Euskal Herria

Kulturaren **egituraketa** Ipar Euskal Herrian. Herria

Zeinen egokia den eskualde mailako azterketa nazioarteko ekonomia-espazioaren **egituraketaren** analisian. Koro Navarro

Azken hilabete hauetan aldaketa fierrak ezagutu ditu lantegi horrek bere **egituraketan** . Herria

Halere, sistema existitzen da, barruko antolaketa edo oreka bat du, eta **egituraketa** hori, bana-banako adierazleen eta adierazien arteko lotura positiboaren kariaz, izaten da eta izateari dio eusten. Isabel Arrigain

2 (izenondo eta izenlagunekin)

UCIk egindako **egituraketa** berrian Kaikuk talde profesionalen kategorian izango du lekua. Berria - Kirola

Aholkularitza eta akuilu funtzioa bete beharko ditu **egituraketa** berrian. Berria - Euskal Herria

Taldeak baliabide ekonomikoak eta **egituraketa** egokia duela erakutsi du. Berria - Kirola

Jokalari on asko dago, baina ez dago dirurik **egituraketa** sendo bat aitzina eramateko. Berria - Kirola

NBEren berme eta babesik gabe Iraken gehiengoan dauden xiitek ez dutela onartuko herrialdearen **egituraketa** federal bat. Berria - Mundua

Bi zerrendek diote enpresak **egituraketa** ekonomikoaren oinarrian daudela. Berria - Ekonomia

Euskal Herriaren **egituraketa** politikoa eraikitzeko prozesua. Berria - Euskal Herria

Europako Batasunaren **egituraketa** politikoa aztertuko dute. Berria - Kultura

SAren zuzenketa ezin dela testu alternatibo gisa kalifikatu, eta horretarako honako argudioa ematen dute: dokumentuak prozedura legegilearen arabera tramitatua izateko «gutxieneko **egituraketa** » ez duela. Berria - Euskal Herria

Saskibaloi talde handiek oinarrizko **egituraketa** dute jokoan. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sektoreko **egituraketa** planaren ardatz nagusiak hauexek dira: ekoizleak bateratzea, hiltegiak razionalizatzea eta merkaturatze indartsua bultzatzea. Berria - Ekonomia

Biltzarreko eztabaida nagusietako bat, hain zuzen ere, alderdiaren **egituraketa** ereduari buruzkoa izango da. Berria - Euskal Herria

Espainiako Estatua **egituraketa** krisi sakonean. Berria - Euskal Herria

ELAk «ez du uste **egituraketa** esparrua Iparraldera hedatzea denik bide bakarra nazio-konpromiso hori gauzatzeko, ezta ezinbestean bide hoberena denik ere». Berria - Ekonomia

Teknologia hartzen da gizartearen konposizioa eta **egituraketa** -moduak determinatzen dituen faktore nagusitzat. Askoren artean

Ez da inoiz **egituraketa** mailako loturarik izan FLNCren eta U Ribomburen artean. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horizontalki eraturiko gizarte-**egituraketa** berrezarriz. Iñaki Mendiguren

UPNk beldur dio autogobernuaren eta estatuaren lurralde **egituraketaren** eztabaidari. Berria - Euskal Herria

Zazpi herrialde historikoen arteko harremanak eta nazio **egituraketa** . Berria - Euskal Herria

Hezkuntza sistema edota herri **egituraketarekin** zerikusia duten gaiak. Berria - Euskal Herria

Unibertsitate **egituraketak** bost milioi euro hartuko ditu. Herria

Erakusteko hizkuntza **egituraketaren** alboan (edo interpretazioarenean), gauzatu ahal izango zela enuntziatuen, euren eraketaren eta diskurtsoari berezkoak zaizkion erregulartasunen deskribapen zehatza. Xabier Arregi

Erkidegoaren barne **egituraketa** . Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egituraketa berria (4); **egituraketa berrian** (3); **egituraketa eta** (8); **egituraketa politiko** (3); **egituraketa politikoa** (6); **egituraketan eta** (7); **eta egituraketa** (7); **europako geroko egituraketan** (4); **euskal herriaren egituraketa** (6); **geroko egituraketan** (4); **geroko egituraketan eta** (4); **herriaren egituraketa** (6); **herriaren egituraketa politikoa** (5); **lurralde egituraketaren** (3)

---

egituratu, egitura(tu), egituratzen **1** du *ad* egitura eman.

Mundu-ekonomia zirkulu zentrokideetan zegoen **egituratua** . Koro Navarro

Unibertsitatea hiriaren erdian garatzeko, eta horrela hiria bera ere **egituratzeko** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Sistema bat edo sistema baten antzeko zerbait **egituratzea** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nazio eraikuntza ezin da modu sakabanatuan egin, indarrak **egituratzen** hasteko garaia da. Berria - Harian

Bizitzaren baitako betikotasuna errubizko uneok **egituratzen** dute. Markos Zapiain

Bere zatiak modu arrazional batean **egituratzen** dituen osotasun bat. Josu Zabaleta

Bi ardatzen inguruan **egituratzen** da ekonomiaren globalizazioak dakartzan arazoez hemen proposatzen den irakurketa. Koro Navarro

Ikasketa planak ez dira **egituratu** aldez aurretik finkaturiko prestakuntza helburuak betetzeko, eta ez dituzte batere argi oinarrizko helburuak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garatzea eta **egituratzea** . Herria

Komunikazio estrategiak **egituratu** beharko lituzkete unibertsitateek ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Espazio ekonomiko koherenteak eratu nahi ziren, estatuek **egituraturiko** espazio politikoen gainean osatuak. Koro Navarro

Maila paradigmatikoan (hiztunak memorian dituen hotsak **egituratzean**) eta maila sintagmatikoan. Lourdes Oñederra

Nire haurtzaroa hiru ardatzen inguruan **egituratu** zen. Ana Urkiza

Denbora gure bizitza **egituratzeko** daukagun tresnarik garrantzitsuena izanda ere, ez diogu ia denborarik eskaintzen denboraz pentsatzeari. Pako Aristi

Erakusketa bost multzotan **egituratu** dute [...]: Begi enpirikoa, Performancea eta gorputza, Historia, memoria eta identitatea, Irudi eraikia eta Fantasia narratiboa. Berria -

Kultura

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Teknikoki zuzen eta egoki **egituratu** zen euskara batua. Koldo Zuazo

Taxuz **egituratutako** materiala. Berria - Gaiak

Autoreak trebezia handiz **egituratzen** du bere obra. Askoren artean

Su-etenaren akordioa zuzen **egituratu** izan balute bakebidean pauso bat emateko moduan egongo ginateke orain. Berria - Mundua

Proposamen berriak etengabe **egituratu** behar dira. Berria - Euskal Herria

Arte modernoa izendatu zutena hiru ardatzetan oinarrituta **egituratu** zuten. Berria - Kultura

Teoria etikoak printzipio absolutuen arabera **egituratzen** dira. Askoren artean

Irudia barne hizkuntza bat bezala **egituratzen** da. Josu Zabaleta

Misteriozko elkarrizketa horren bitartez, jaikiko da, ongi **egituraturik** gure nortasuna. Piarres Xarriton

ESTER 'erreginaren' kontakizuna bizia eta ederki **egituratua** ageri da, pertsonaiek eta gertakariek topiko usain handia badute ere. Jose Antonio Mujika

Argi dago, dena den, atxilotuak izan diren gazte horiek ez direla politikoki **egituratuak**. Berria - Mundua

3 (era burutua izenondo gisa)

Leize subkontzientea, zeinen gainean baitzeuden flotatzen banako giza nortasunaren borondate eta adimen kontzientea, ez zela kaos bereizgabe bat, unibertso **egituratu** bat baizik. Iñaki Mendiguren

Andreak hasi dira, inoiz ez bezala, unibertsitateko ikasketak egiten, eta lehenbiziko aldiz sartu dira indar guztiarekin produkzio **egituratuaren** munduan. Pello Salaburu

Bertsolariaren gaitasun erretorikoak segundo gutxi batzuetan sortzen du, bat-batean inprobisatuz, ahozko diskurtso **egituratu** bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Koadroaren funtzioen artean sartu dugu konposizioa, koadroa azalera antolatua, **egituratua** den heinean. Josu Zabaleta

Itxura guztiz **egituratu**, ia geometriko batean. Josu Zabaleta

Ikusi dugun bezala, diskurtso kontzientea eta aski **egituratua** da bat-bateko bertsoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jende ugari bizitzeko etxe eta eraikin-multzo **egituratua**. Berria - Kultura

Hitz hauek, anaiarteko nagusiei dagozkienak, poliki poliki joan ziren espezializatzen, anaiartea bera handituz eta erakunde **egituratua** bihurtuz joan zen heinean. Askoren artean

Top 16 eta Europako Kopan joko biziagoa egiten da eta elkarren aurkako kontaktuak gogorragoak dira, eta, jakina jokoa ere **egituratuagoa**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabera egituratu (4); **bat egituratu** (3); **bezala egituratu** (3); **egituratu bat** (3); **egituratu behar** (11); **egituratu behar direla** (3); **egituratu behar dugu** (3); **egituratu beharko** (5); **egituratu dira** (4); **egituratu du** (7); **egituratu dute** (3); **egituratu eta** (13); **egituratu nahi** (3); **egituratu zen** (6); **egituratua dago** (3); **egituratuta dago** (4); **gisa egituratu** (4); **inguruan egituratu** (4); **nola egituratu** (3); **nola egituratuko** (3); **ondo egituratuta** (3); **ondo egituratutako** (5); **ongi egituratu** (3); **oso ondo egituratuta** (3)

arabera egituratzen (4); **egituratzea da** (3); **egituratzea izango** (4); **egituratzeko aukera** (4); **egituratzeko eta** (4); **egituratzeko proposamena** (3); **egituratzen da** (8); **egituratzen dela** (3); **egituratzen den** (5); **egituratzen dituzten** (3); **egituratzen du** (6); **egituratzen du bere** (3); **egituratzen duen** (5); **egituratzen eta** (4); **eta egituratzeko** (4); **inguruan egituratzen** (6); **inguruan egituratzen da** (3); **liburua egituratzeko** (3); **nola egituratzen** (7); **nola egituratzen den** (4); **subiranista egituratzea** (3); **subiranista zibila egituratzea** (4)

---

egituratzaile *izond/iz* egituratzen duena.

Hitzarmen Berezia tresna **egituratzailea** izan da eta helburuak betetzeaz gain, hautatu dugun kudeantza mota berak gainbalioa eragin du, egitasmo berriak sortuz. Berria - Euskal Herria

Hori izango zen garbi-garbi Vitruvioren tratatuaren gako **egituratzaileetako** bat. Santiago Iruretagoiena

Ardi galduaren antzo desbideratu nintzen (Sal. 118, 176) eta nire artzainaren, zure **egituratzailearen** lepoan zugana eramango nauela espero dut. Imanol Unzurrunzaga

Gertakizun larri bat edo ixtripu bat gertatzen balitz, erresponsabilitatea ez litaikela 2 egun hoien **egituratzaileen** gain. Karlos Zabala

---

egituratze **1** *iz* egitura ematea.

Bi **egituratzeek** -hau da, inperioak eta egitura dezentralizatuak- merkataritzaren esparruaren gainean dituzten ondorio desberdinak. Koro Navarro

Desberdintasun horiek irudiaren **egituratze** sakonean gertatuko dira gehiago edukietan baino. Josu Zabaleta

Konkurrentziaren printzipioaren **egituratze** instituzionala, gizarte mailako ondorio negatiboak gutxiagotzen dituena. Koro Navarro

Egituratze politikoa esatean, nazio-hizkuntza eta erlijio bakarra indarrez ezartzea, biztanle-taldeak administrazio zentral indartsu zapaltzaile baten mende ordenatzea ulertu behar da. Koro Navarro

Erabakiaren **egituratze** teknikoak hilabete batzuk iraungo duela ohartarazi zuen. Berria - Mundua

Hizkuntzaren **egituratze** fonemikoaren funts ezinbesteko den hori ez da, antza, entzumenari bakarrik dagokiona. Lourdes Oñederra

Horrelako silaba **egituratze** sendoari eusteko, mesedegarri da azentu ahula. Lourdes Oñederra

Beste horrenbeste esan genezake prosodiaren **egituratze** formalari emandako arretak eredu berrien sorrera eta garatzean izan duen garrantziaz. Lourdes Oñederra

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elikadura kulturaren parte bat da edo, bestela esateko, gizatalde baten antolamendu sozialaren **egituratze**-funtzioetako bat. Edorta Agirre

Hitzarmen berrian ez da zehazten zein izanen den euskalgintzaren eginkizuna, ezta **egituratze** prozesuan zein den dagokion esparrua ere. Berria - Euskal Herria

Aipatu berri dugun **egituratze**-lan hori tradizioan obraren, irudiaren konposizioa deitu izan den bera da. Josu Zabaleta

Bertsoaren antolatze eta **egituratze** lan hori osorik burura daiteke kantatzen hasi aurretik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hots-unitate eta hots-bilkurak gutxiegi dira edozein hizkuntzaren kontraste eta **egituratze** beharretarako. Lourdes Oñederra

Mezuaren **egituratze** maila goragokoekin (esanahiarekin). Lourdes Oñederra

---

egiune **1** *iz* zerbait egiteko edo ez egiteko, pertsona bi edo gehiagoren artean egiten den hitzarmena. ik**tratu**; **kontratu**.

Izan ere, gizarte batetik jasoriko adierazpide oro, hasteko, beti ohitura kolektibo batean oinarritzen da, edo gauza bera dena, **egiunean**. Isabel Arrigain

Ez badugu hizkuntza ikusten **egiune** huts gisa, hiztunen nahierara alda daitekeen **egiune** gisa, ez da horregatik, baizik eta gizarte indarraren eraginarekin batera gauzatzen den denboraren eraginagatik. Isabel Arrigain

Ikur oro funtsatzen den **egiunezko** erlazioa. Isabel Arrigain

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egia da, bestalde, balioak **egiune** aldaezin baten araberakoak direla, jokoaren erregelaren araberakoak alegia. Isabel Arrigain

Eranskin honetan, erabili ditugun notaziozko eta terminologiazko **egiune** ezagun eta ez hain ezagunak laburki aurkeztu eta azaltzen ditugu. Itziar Laka

Hartara, euren segurtasuna ezbaian jartzen dute tarteko diren esanezko zein ezkutuko **egiune** batzuek. Andres Urrutia

Zibilizazioak, garatzean, komunikabideak ugaldu ohi dituenez, dialektoetako bat aukeratu ohi du, nolabaiteko isileko **egiunez**, dialekto hori nazioari oro ohar interesatzen zaion guztia adierazteko bide eta tresna bihurtuz. Isabel Arrigain

Ingelesaren egiturari buruzko eztabaidan zehar erabiliko ditugun notaziozko **egiuneak** 11. kapituluko I Eranskinean azaltzen dira. Itziar Laka

egizale ik **egiazale**.

egiztatu ik **egiaztatu**.

egloga *iz* artzainen bizitza eta landako bizimoda idealizatzen duen poema.

Hura, ordea, **eglogetako** artzain liberalen estiloko erantzuna zenez, onartu behar izan zuen ez zela Farringtonen erantzuna bezain zorrotza. Irene Aldasoro

Lukrezio Erroman ezagutua izanaren lehen seinaleak, -Zizeron ederki gordetzen baita hura bere obretan aipatzetik-, hurrengo belaunaldiari zor dizkiogu, zehazki Virgiliori bere **Eglogetan**. Xabier Amuriza

Historiaren teoria ziklikoa geratzen da, Platonen *Timeo*-n, Virgilioren laugaren **eglogan** eta beste alde batzuetan dagoen bezala. Iñaki Mendiguren

Menturaz Cid-en poema, bere zakarrean, **Eglogetako** epiteto bakar baten edo Heraklitoren sententzia baten kontrapisu ezinbestekoa da. Juan Garzia

ego **1** *iz* norbanakoaren nortasuna. ik **ni**.

Eta Fiume Italiarentzat irabazteko lehian, iritzi publikoaren txaloek poetaren **ego** zalapartatsua hauspotu dute. Anjel Lertxundi

Chavez oso pertsonalista da, **ego** izugarria dauka. Pako Aristi

Egoa harrotu zaio, bai, lipar batez; halaber, ez aise da. Jose Angel Irigaray

Zitalkeria, zeloak, hisiak, ziurtasun-eza, txutxu-mutxuak, errezeloak, **"ego"** harrotuak, kaka eta kaka gehiago. Karlos Zabala

Beste gradu batera pasatzea duk kontua, paper zuria belztea ez duk aski, norberaren **egoa** puzteko ez bada. Iñaki Iñurrieta

Bere **egoa** handitzeko egindako funtsik gabeko eraso hark Minduta zegoen nire **egoa**. Berria - Kirola

Egoan hunkitua eta bihotzean kolpatua bezenbat, errabiatua da. Jose Angel Irigaray

Poztasun handiagoa hartzen zenuen arauak urratzean, askoz hobeto **ego**-arentzat. Karlos Zabala

Episodio horietan, itsua balitz bezala tratatzen zuen familiak Virgil; ikustun-nortasuna ukatu, edo hari azpijana egiten zion, eta Virgilen erantzuna, onez onekoa, itsu gisa portatzea edo are itsu bihurtzea izaten zen: haren **egoaren** parte baten baliogabetze edo atzera-pausoa; identitate-uko txikitzaile eta ezereztailea, alegia. Xabier Olarra

Bere erabakiaren estresak mendean harturik **egoaren** banaketa freudiar bat jasan ote zuen, eta hipermnesiko histeriko moduko bat bihurtu harrezkeroztik? Xabier Olarra

Hala, askotan, sindromearen pertsonifikazio irrigarriaren bidez egiten da idaren eta **egoaren** arteko bereizketa. Xabier Olarra

Baina "zer"ak eta norberak, idak eta **egoak** duten harremana oso konplexua izan daiteke Touretteren sindromean. Xabier Olarra

Freudek ere aspaldixko hitz egin zuen **ego** kolektiboaz eta hark izan zezakeen indar eztandagarriaz. Karlos Linazasoro

Filosofiaz hartu behar, zer erremedio, horrelako ateraldiak, jardunarekin batera **egoaren** hegoak ere ebaki zizkidaten arren. Joxerra Garzia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Familia bat gara, onerako eta txarrerako, eta denon artean borrokatzen gara, **ego** arazorik gabe. Berria - Harian

«**Ego** kontua da», dio. Edorta Jimenez

Reeden karismak eta talentuak eta Caleren esperimentazio nahiak bat egin zuten, eta bien arteko **ego** borrokak utzi zuen bitartean, handik musika bizi, iraultzaile, eder eta irekia sortu zen. Berria - Kultura

3 ***alter ego*** bigarren nortasuna; norbaiten iritzi eta jokaerekin bat aritzen pertsona.

Jacques Vingtrasek (liburuon Vallès-en **alter egoa**) ez zuen haurtzaro zoriontsurik izan. Pablo Sastre

Baina egia bada, egingo nuke kontakizuneko irakasle hori Leandroren **alter ego** bat dela. Anjel Lertxundi

Antzezlaneko pertsonaia nagusia idazlearen **alter egoa** da. Edorta Jimenez

Protagonisten **alter egoa** irudikatzen du musikak. Berria - Kultura

Izango da iragan epikoagoak liluratuta, Amical Mauthausen elkarteko lehendakari ohi Enric Marco-k bezala, "horrela jendeak gehiago entzuten didalako", gezurretako **alter ego**-rik asmatuko duenik. Iñigo Aranbarri

egoera **1** *iz* zerbait edo norbait dagoen modua.

Ekonomilarien abstrakziorako eta ereduak erabiltzeko joera nabarmen horrek areagotu egiten du **egoera** edo gertakari baten aurrean hipotesiak ezartzeko jaidura. Iñaki Heras

Ez zuen inor, ez ezer indarrez behartu nahi, ez pertsonak eta ezta **egoerak** ere. Askoren artean

Egoera zela eta, Lizek eta Sarak haien etxean pasatzen zuten gaua, Rosarioren ardurapean. Bernardo Atxaga

Garbi esanda, azken batean, Caracasen **egoera** ez dago poesiak irakurtzeko. Pako Aristi

Egoera horrek, nolanahi ere, ez zuen askorik iraun, ez behintzat hartan pentsatzeko beta izateko. Koro Navarro

Ohartuko zenion segurki zenbatez, **egoera** horretan, defentsa ahultzen ari den heinean, galdeak eta ukoak hurrenez-hurrenagoak izaten diren. Jon Muñoz

Larrua jo behar da **egoera** guztietan, ene kutuna, larrua jotzeko jaioak gara eta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Pertsona eta **egoeraren** arabera. Jon Alonso

Egunari eguna, **egoerak** ez du irtenbiderik. Anjel Lertxundi

Egoerari aurre egiteko, 2010. urtera bitarterako plangintza osatu du taldeak. Berria - Ekonomia

Herrialde honen zoria aldatuko dut, lehengo **egoerara** ekarriko. Elizen arteko biblia

- **Egoerari** loturiko erreferentziak (lagun bertsolariak, entzuleak, saioa egiten ari den lekua eta eguna...). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horixe da Ruseko idazleon **egoera**! Jose Morales

Nebaten seme Jeroboamen errege-etxea utzi nuen **egoera** berean utziko dut zurea ere. Elizen arteko biblia

Izan ere, **egoera** erabat aldatu zen bi hankaren gainean ibiltzen hasi ginenean eta zuhaitzetatik sabanara jaitsi ginenean. Luis Elberdin

Zientzia gaur dagoen **egoeran** egonik, batak zein besteak probabilitate bera balute bezala egia izateko. Josu Zabaleta

Egia da, orokorrean, gizartearen **egoera** lehen baino hobea dela. Berria - Gaiak

Eguraldiaren **egoera** (euria, ekaitza, hodeiak) irudikatzeko joera hori beste margolari askorengan ere ikus daiteke. Josu Zabaleta

Eguraldiaren **egoerari** buruz egin zituen iruzkinak ez ziren zuzen-zuzenak izan. Irene Aldasoro

Europaren **egoera** Karlos Martelen garaian. Iñaki Iñurrieta

Ministroak, ordea, ez zion baimenik eman, beldur baitzen bideko zailtasunak ez ote zuen haren **egoera** gaiztotuko. Askoren artean

Egoera okerragotzen ari zen, eta laster jasan ezina bihurtuko zen. Elena Touyarou

Txosten honetan xeheki aztertzen da Espainiako ikasketen planen **egoera** eta. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Senarraren **egoeraz** arduratzen den emazte zintzoa. Xabier Kintana

Ez nago neure **egoeraz** etsia, baizik eta zinez uste dut aterako naizela gaixoaldi honetatik. Elizen arteko biblia

Onartu beharra neukala **egoera**, eskubiderik ez nuela nire maistraren gauzetan sartzeko. Juan Kruz Igerabide

Egoera kontuan hartuta, aukera bakarra zegoen. Oskar Arana

Kokak eta Zearrak uda eskas samarra egin dute, baina ematen du **egoerari** buelta emateko gauza izan direla. Berria - Kirola

Egoera batetik besterako aldaketa era askotara egin dezakegu. Itziar Laka

Bere begiez ikusi behar zuen **egoeraren** larritasuna zenbaterainokoa zen. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egoera onean ote zeuden? Juan Kruz Igerabide

Sindikatu nagusiei prekarioak eta gisakoak alde batera utzi eta **egoera** onenean eta seguruenean dauden langileen errebindikazioei begira bizitzea leporatu zien. Berria - Kultura

Egoera estuan dago, ziega batean usteltzeko arriskuan. Migel Angel Mintegi

Ez ninduela beldurtu nahi, baina **egoera** latza zela benetan. Anjel Lertxundi

Helduei so eginez nabari zen **egoera** larria zela. Edurne Elizondo

Kartzelako urte gogorrak jasan behar izan zitian berak, eta **egoera** larria neuk. Josu Landa

Zein, ordea, **egoera** larriagoa Angelo OVRAkoen atzaparretan egotea baino? Anjel Lertxundi

64.000 preso daude abantzu, gero eta **egoera** okerragoan. Berria - Euskal Herria

Ni lanik gabe, gurea ez zunan **egoera** erraza. Migel Angel Mintegi

Egoera zailei aurre egiteko gauza sentitzen naiz. Pako Aristi

Egoera deitoragarri hortaz, nor ote da hobendun? Herria

Trantze **egoera** hipnotiko batean murgildu zen. Harkaitz Cano

Geologia ere zientzia historiko bat da, eta batzuetan, berak ere **egoera** egonkorrak deskribatu behar ditu. Isabel Arrigain

Egoera bakeoso hau, antizikloiaren pean gertatu ohi da, presio altu samarrarekin. Pello Zabala

Garuneko lesioren batek eragindako koloreekiko itsutasun erabatekoa, garuneko akromatopsia deritzona, duela hiru mendetik gora deskribatua, **egoera** ez-ohiko eta larria da oraindik ere. Xabier Olarra

Ordena ofiziala, beste bide batzuetatik zihoan, ezinbestean eta **egoera** eta zirkunstantzia berriek bultzatuta. Lasaituta, **egoera** deseroso hartatik libratzeagatik batez ere, eta pozik ere bai, nola edo hala, nire helburua lortzeko zorian nengoelako. Askoren artean

Herrialde horien arazoak oso desberdinak dira beren aurrekari historikoen arabera, herrialde bakoitzaren kokagune geografikoaren arabera, bilakaera demografikoaren arabera edota **egoera** politikoaren arabera. Iñaki Heras

Legeak bere gogoa erakusten du gizakien **egoera** zibila agiri publikoetan idazteko. Andres Urrutia

Egoera mugatuko Markov-prozesuak. Itziar Laka

Denbora ez da barneko sentsuaren forma, h[au] d[a], geu eta geure barneko **egoera** begiesten duen forma baino. Ibon Uribarri

Muturreko **egoerara** irits gintezke. Jon Alonso

Badakizu, niri muturreko **egoerak** gustatzen zaizkit. Karlos Linazasoro

Monopoliozko **egoeraz** baliatu ahal izateko. Koro Navarro

Bortxazko **egoera** haren ondorioak baretzeko. Jon Muñoz

Talde euskaltzalearen ustez, «egiturazko **egoerak** muga argiak ezartzen dizkio hizkuntzari, horregatik, euskarak estatus legal bakarra izatea ezinbestekoa da». Berria - Euskal Herria

Halako **egoeretarako** beroki on bat behar zuen, ez da luxu bat, behar hutsa baizik. Jon Alonso

Judaren eta Israelen zoria aldatuko dut, eta behinolako **egoeran** ezarriko ditut berriro. Elizen arteko biblia

Heriozko **egoera** horretarik nahi bainuen zernahi gostarik ere jalgi. Jon Muñoz

Elurretarako **egoera** apropostxoren bat erraz fortunatzen da neguaren bihotzeko sasoi hauetan. Pello Zabala

Bigarren koka takadak ez zidan mintzamena itzuli, baina, whiskyaren eta zerbezaren laguntzaz, ez ongiezik ez bozkariorik gabeko **egoera** neutro batera igorri ninduen. Aingeru Epaltza

Crackzale hordi hitz-totelarengatik izan ez balitz, batek daki noiz arte iraungo ote zukeen ez aurrerako ez atzerako **egoera** hark. Oskar Arana

Ontzi-sotoan arraunean ari ziren galerianoen **egoera** zorigaiztokoa. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maila- eta **egoera**-desberdintasunak kalte-ordainen tamainan zeuden bakarrik. Iñaki Iñurrieta

Eman dezagun tresna hau hasierako egoeratik abiatu, **egoera**-hurrenkera batetik igaro (aldaketa bakoitzeko hitz bat sortuaz), eta bukaerako egoeran gelditzen dela. Itziar Laka

Egoera mugatuko gramatika **"egoera**-diagrama" bezala itxura daiteke grafikoki. Itziar Laka

Etsita ari ziren, haserre baino, guztiz ohiturik baleude bezala **egoera**-suerte haien deserosotasunetara. Anjel Lertxundi

Arras prest baitzegoen beti **egoera**-aldaketak definitzeko; eta berehala jartzen zien senarraren abizena ezkontzen ziren emakumeei. Fernando Rey

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neurriratzeak esan nahi du itxura ederra lortzea, eta elementuen konposizioan **egoki** proportzionatuko forma izatea. Santiago Iruretagoiena

Eskolako kimika-liburuak halako **egoki** eta aise deskribatzen zituen fenomeno haietariko bat. Juan Garzia

Hark oso **egoki** estutu zizkidan, minik eman gabe ene plazerra areagotzeko moduan. Aitor Arana

Beste arrazoi asko erantsi zizkien lehen aipatu ditugunei, eta hain **egoki** eta kristauki eta zuzen esanak denak. Patxi Ezkiaga

Oso **egoki** eta dohatsuki definitua izan baita adiskidetasuna: Jaungoiko eta giza gaietan adostasun onbera eta karitatezkoa. Imanol Unzurrunzaga

Eman biezat berorrek zigor edo adaska **egoki** samar bat, haretxez eman eta hartuko ditut-eta, min gehiegirik ematen ez badit behintzat. Patxi Ezkiaga

Bai-baitaki bi silabok bertso-saioko giro bildu hartan **egoki** eta ozenik ahoskaturik eragingo duen emozioaren pareko emoziorik ez lukeela lortuko Adan eta Ebaz geroztik asmatu diren metafora guztiak erabilita ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zu ere onest izatea eta zurekin **egoki** eta zuzen jokatzea. Jon Muñoz

Zenbait urte lenago amestu ere ezin gentzaken gaiak erabili ditute, taiuz, **egoki**, sakon ta argi. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

baina egoki (6); **bakoitzak egoki** (5); **bat egoki** (5); **bezain egoki** (6); **da egoki** (10); **du egoki** (5); **egoki adierazten** (5); **egoki bakarra** (7); **egoki bat** (92); **egoki batean** (15); **egoki batek** (9); **egoki baten** (32); **egoki baten bila** (9); **egoki batzuk** (5); **egoki betetzen** (5); **egoki da** (16); **egoki dela** (5); **egoki den** (13); **egoki den bezala** (6); **egoki edo** (6); **egoki egin** (8); **egoki egokia** (7); **egoki erantzuteko** (6); **egoki eta** (75); **egoki eta zuzen** (6); **egoki etorriko** (5); **egoki ez** (8); **egoki hori** (6); **egoki ikusi** (6); **egoki ikusten** (26); **egoki ikusten dut** (5); **egoki iritzi** (23); **egoki iritzi zion** (7); **egoki irizten** (12); **egoki iruditu** (15); **egoki iruditzen** (13); **egoki izan** (6); **egoki ulertzeko** (5); **egoki zen** (6); **egoki zetorren** (5); **erantzun egoki** (9); **ere egoki** (15); **eta egoki** (60); **ez da egoki** (7); **ez egoki** (7); **guztiz egoki** (5); **hain egoki** (19); **hitz egoki** (11); **hori egoki** (6); **ideia egoki** (9); **lana egoki** (5); **leku egoki** (8); **modu egoki** (6); **oso egoki** (30); **toki egoki** (8); **tresna egoki** (6); **zeinen egoki** (5); **zuzen eta egoki** (12)

abagune egokia (6); **abiapuntu egokia** (7); **adibide egokia** (8); **alternatiba egokia** (5); **antolaketa egokia** (5); **arras egokia** (9); **arropa egokia** (5); **aukera egokia** (21); **aukera egokia izan** (5); **azalpen egokia** (5); **azpiegitura egokia** (8); **baina egokia** (6); **baita egokia** (8); **banaketa egokia** (6); **bat egokia** (7); **baterako egokia** (5); **batere egokia** (31); **bereziki egokia** (9); **bezain egokia** (14); **bide egokia** (49); **bide egokia hartu** (7); **bitarteko egokia** (7); **biziki egokia** (5); **bizitzeko egokia** (5); **da batere egokia** (9); **da egokia** (53); **da une egokia** (8); **definizio egokia** (5); **dela batere egokia** (6); **dela egokia** (33); **den egokia** (7); **edo egokia** (7); **egitea egokia** (6); **egiteko egokia** (7); **egoera egokia** (8); **egoki egokia** (7); **egokia al** (7); **egokia al da** (6); **egokia ala** (5); **egokia aukeratu** (9); **egokia aurkitu** (24); **egokia aurkitzea** (9); **egokia aurkitzeko** (8); **egokia aurkitzen** (5); **egokia bada** (13); **egokia baita** (9); **egokia baitzen** (6); **egokia baldin** (7); **egokia baldin bada** (5); **egokia behar** (18); **egokia behar da** (7); **egokia da** (180); **egokia da eta** (6); **egokia dela** (100); **egokia dela esan** (5); **egokia dela uste** (14); **egokia delako** (7); **egokia den** (66); **egokia den ala** (11); **egokia den edo** (7); **egokia den ideia** (6); **egokia dena** (5); **egokia denik** (19); **egokia du** (17); **egokia duela** (5); **egokia egin** (14); **egokia egitea** (8); **egokia egiteko** (13); **egokia egiten** (9); **egokia eman** (21); **egokia emango** (6); **egokia ematea** (7); **egokia emateko** (14); **egokia ematen** (18); **egokia erakutsi** (6); **egokia ere** (18); **egokia eskaini** (5); **egokia eskaintzen** (5); **egokia eta** (69); **egokia eta zuzena** (5); **egokia ez** (59); **egokia ez dela** (18); **egokia ez den** (7); **egokia gertatzen** (5); **egokia hartu** (19); **egokia hartzeko** (8); **egokia hartzen** (5); **egokia ikusi** (7); **egokia ikusten** (7); **egokia iruditu** (53); **egokia iruditu zait** (7); **egokia iruditu zitzaidan** (7); **egokia iruditu zitzaion** (9); **egokia iruditzen** (60); **egokia iruditzen zait** (19); **egokia izan** (170); **egokia izan behar** (14); **egokia izan da** (5); **egokia izan daiteke** (39); **egokia izan daitekeela** (16); **egokia izan dela** (10); **egokia izan liteke** (8); **egokia izan zela** (6); **egokia izan zen** (11); **egokia izan zitekeela** (11); **egokia izanen** (7); **egokia izango** (54); **egokia izango da** (10); **egokia izango dela** (6); **egokia izango litzateke** (6); **egokia izatea** (9); **egokia izateko** (6); **egokia izaten** (13); **egokia jarri** (7); **egokia jasotzen** (6); **egokia litzateke** (15); **egokia litzatekeela** (8); **egokia lortu** (13); **egokia lortzea** (6); **egokia lortzeko** (8); **egokia ote** (19); **egokia ote den** (6); **egokia ote zen** (5); **egokia topatu** (6); **egokia topatzea** (5); **egokia zein** (7); **egokia zein den** (5); **egokia zela** (46); **egokia zela pentsatu** (5); **egokia zen** (52); **egun egokia** (9); **elikadura egokia** (9); **era egokia** (5); **erabaki egokia** (6); **erabat egokia** (7); **erabilera egokia** (9); **erantzun egokia** (42); **erantzun egokia eman** (8); **erantzun egokia emango** (5); **erantzun egokia ematea** (5); **ere egokia** (24); **ere egokia da** (5); **ere egokia izan** (5); **eredu egokia** (6); **erritmo egokia** (9); **eta egokia** (64); **eta oso egokia** (5); **eta une egokia** (7); **ez baita egokia** (6); **ez da egokia** (39); **ez dela egokia** (30); **ez egokia** (5); **ez litzateke egokia** (13); **ez zela egokia** (9); **ez zen egokia** (7); **ezagutza egokia** (6); **galdera egokia** (6); **garai egokia** (7); **gauza egokia** (6); **giro egokia** (15); **gizon egokia** (5); **gune egokia** (10); **guztiz egokia** (19); **hain egokia** (17); **hautagai egokia** (6); **hautaketa egokia** (5); **hezkuntza egokia** (7); **hitz egokia** (22); **hori egokia** (12); **horretarako egokia** (12); **hura egokia** (5); **ideia egokia** (23); **informazio egokia** (6); **irakurketa egokia** (7); **irtenbide egokia** (13); **izen egokia** (13); **jarraipen egokia** (5); **jarrera egokia** (25); **jarrera egokia izan** (5); **kausa egokia** (11); **konponbide egokia** (7); **kopuru egokia** (6); **kudeaketa egokia** (8); **laguntza egokia** (5); **lan egokia** (12); **lan egokia egin** (5); **leku egokia** (50); **leku egokia da** (7); **leku egokia izan** (5); **litzateke egokia** (14); **maila egokia** (17); **material egokia** (8); **memento egokia** (5); **modu egokia** (19); **momentu egokia** (7); **nahiko egokia** (6); **neurri egokia** (15); **norabide egokia** (9); **oso egokia** (115); **oso egokia da** (22); **oso egokia iruditu** (6); **oso egokia iruditzen** (5); **oso egokia izan** (9); **partida egokia** (8); **pertsona egokia** (16); **politika egokia** (6); **politiko egokia** (6); **prezio egokia** (5); **puntu egokia** (13); **sasoi egokia** (12); **sasoi puntu egokia** (6); **sistema egokia** (9); **soinu egokia** (5); **talde egokia** (7); **tamaina egokia** (5); **tenperatura egokia** (5); **toki egokia** (20); **tonu egokia** (9); **tonu egokia ematen** (5); **tratamendu egokia** (18); **tresna egokia** (33); **tresna egokia da** (6); **tresna egokia dela** (7); **tresna egokia izan** (8); **une egokia** (92); **une egokia da** (10); **une egokia dela** (11); **une egokia zela** (9); **uste egokia** (5); **uste egokia denik** (5); **zela egokia** (9); **zen egokia** (12)

askoz egokiagoa (10); **baino egokiago** (15); **baino egokiagoa** (17); **baino egokiagorik** (8); **egokiago bat** (9); **egokiago da** (5); **egokiago izanen** (5); **egokiago litzateke** (6); **egokiagoa da** (37); **egokiagoa dela** (15); **egokiagoa delako** (5); **egokiagoa eta** (5); **egokiagoa iruditu** (7); **egokiagoa izan** (10); **egokiagoa izango** (17); **egokiagoa**

litzateke (12); **egokiagoa zela** (5); **egokiagoa zen** (12); **egokiagoak dira** (14); **egokiagorik ez** (10); **eta egokiago** (6); **eta egokiagoa** (9); **ezin egokiago** (10); **ezin egokiagoa** (36); **ezin egokiagoa da** (8); **ezin egokiagoa izan** (5); **ezin egokiagoak** (11); **ezin egokiagoak dira** (5); **hitz egokiagorik** (7); **modu egokiagorik** (5)

baldintza egokiak (41); **baliabide egokiak** (8); **batere egokiak** (12); **bide egokiak** (6); **bide egokian** (5); **dira egokiak** (17); **egiteko egokiak** (7); **egoera egokian** (8); **egokiak al** (5); **egokiak al dira** (5); **egokiak aurkitu** (10); **egokiak aurkitzen** (6); **egokiak dira** (45); **egokiak direla** (22); **egokiak diren** (35); **egokiak dituen** (7); **egokiak egiten** (5); **egokiak emateko** (5); **egokiak ematen** (6); **egokiak ere** (5); **egokiak eta** (15); **egokiak ez** (20); **egokiak ez diren** (5); **egokiak hartu** (9); **egokiak hartzen** (5); **egokiak iruditu** (5); **egokiak iruditzen** (7); **egokiak izan** (29); **egokiak izan daitezke** (6); **egokiak izango** (12); **egokiak izatea** (6); **egokiak izaten** (5); **egokiak sortzeko** (5); **egokiak zirela** (6); **egokiak ziren** (16); **egokian dago** (5); **egokian egin** (7); **egokian eman** (5); **egokian eta** (10); **egokiaren bila** (18); **egokiaren zain** (15); **era egokian** (35); **erabaki egokiak** (6); **erantzun egokiak** (6); **ere egokiak** (9); **erritmo egokian** (5); **eta egokiak** (12); **eta egokian** (7); **eta leku egokian** (5); **eta modu egokian** (6); **eta une egokian** (8); **ez dira egokiak** (11); **hain egokiak** (6); **hitz egokiak** (33); **horiek egokiak** (6); **horretarako egokiak** (8); **ideia egokiak** (10); **leku egokiak** (5); **leku egokian** (18); **maila egokian** (7); **modu egokian** (95); **neurri egokiak** (15); **neurri egokiak hartu** (7); **neurri egokian** (7); **norabide egokian** (12); **oso egokiak** (35); **oso egokiak dira** (9); **oso une egokian** (5); **puntu egokian** (9); **sasoi puntu egokian** (7); **toki egokian** (15); **tratamendu egokiak** (8); **tresna egokiak** (13); **une egokian** (72); **une egokiaren** (12); **une egokiaren zain** (11); **urrats egokiak** (5)

ahalik eta egokien (11); **aukera egokiena** (6); **aukerarik egokiena** (8); **bide egokiena** (23); **biderik egokiena** (32); **da egokiena** (49); **dela egokiena** (13); **den egokiena** (5); **egokien bila** (11); **egokien eta** (5); **egokien iruditzen** (14); **egokien iruditzen zaizuna** (10); **egokiena aukeratu** (5); **egokiena da** (10); **egokiena dela** (17); **egokiena den** (7); **egokiena dena** (7); **egokiena denik** (6); **egokiena eta** (14); **egokiena ez** (12); **egokiena iruditzen** (5); **egokiena izan** (14); **egokiena izango** (7); **egokiena zein** (22); **egokiena zein den** (17); **egokiena zela** (9); **egokiena zen** (5); **egokienak direla** (6); **egokienak diren** (7); **erarik egokiena** (6); **eredurik egokiena** (5); **eta egokien** (16); **eta egokiena** (7); **eta modurik egokienean** (5); **eta modurik egokienean** (5); **ez da egokiena** (19); **ez dela egokiena** (7); **ez zen egokiena** (5); **gauzarik egokiena** (5); **hitz egokien** (6); **hitzik egokiena** (11); **hitzik egokienak** (5); **ideia egokien** (5); **irtenbide egokiena** (8); **irtenbiderik egokiena** (7); **leku egokiena** (11); **lekurik egokiena** (21); **lekurik egokienean** (5); **lekurik egokienean** (5); **litzateke egokiena** (13); **modurik egokiena** (36); **modurik egokienean** (15); **modurik egokienean** (15); **pertsona egokiena** (5); **toki egokiena** (7); **tokirik egokiena** (7); **tresnarik egokiena** (7); **une egokiena** (6); **unerik egokiena** (24); **unerik egokienean** (11); **unerik egokienean** (11); **zela egokiena** (8); **zen egokiena** (14)

baldintza egokirik (7); **bide egokitik** (10); **egokiren bat** (11); **egokirik aurkitu** (15); **egokirik aurkitzen** (8); **egokirik barne** (5); **egokirik barne hartzen** (5); **egokirik eman** (8); **egokirik ez** (33); **egokirik gabe** (9); **egokirik izan** (5); **egokirik jaso** (8); **erantzun egokirik** (11); **ezagutza egokirik** (16); **ezagutza egokirik barne** (5); **hitz egokirik** (17); **tratamendu egokirik** (5)

egokitzat hartu (5); **egokitzat hartzen** (5); **egokitzat jo** (25); **egokitzat jo zuen** (7); **egokitzat jotzen** (17); **oso egokitzat** (7)

---

egoki[2] *adlag ipar* egonez.

Ni aldiz harritua han **egoki** tente, lurrari itzatua izan banintz bezala. Janbattitt Dirassar

Ni ere ixil-ixila **egoki**. Janbattitt Dirassar

Baina nor ikusten dut karrikan berean, bere etxeko atean tente **egoki**, aurpegia frango ilun iduri? Janbattitt Dirassar

Kanpoan zegoen, jatetxeko atetik bi urratsetan, karrika izkina batean, noiz jalgiko nintzen beha **egoki**. Janbattitt Dirassar

---

egokiarazi, egokiaraz, egokiarazten du *ad* egokitzera behartu.

Etxea **egokiarazi** eta dotoretu du, Victor Hugoren oroi eta Frantziaren ohoragarri. Koldo Izagirre

Bederatzi hilabete gerran gaudela, eta ez gara gauza izan dagokien industriei metrailadoreak eta aginte-kontrolak altuera handiko klimara **egokiarazteko**. Josu Zabaleta

Tabakoaren Kontrako Espainako Lege berriak kerik gabeko guneak **egokiarazteaz** gain, kezka eta zalantza berriak ere sortu ditu. Berria - Euskal Herria

Aurreko bi isurion eraginez ekoizpen sistema **egokiarazi** duten hainbat segurtasun neurri hartu zituztela gaineratu zuten *Electroquimica de Hernan*koek. Berria - Euskal Herria

Perpausa zatietan bereizteak balio badu hizkuntzaren hitzak sailkatu ahal izateko, nolatan **egokiaraziko** diogu "zati" horietako bati hitz multzo bat? Isabel Arrigain

Denetan eragiten duen hirugarren kausak **egokiarazi** beharko lituzke substantzien egoerak elkarren artean. Ibon Uribarri

Talesek erakutsi zuen triangelu bakoitzari zirkulu bat **egokiaraz** dakiokeela; haren hiru erpinetatik pasatzen den huraxe, hain zuzen. Jon Muñoz

Beraz, animalien mugimendu motak adierazten dituzten hitz guztiak esaniko eraz erabili izan dira Jainkoaren atributu gisa (gorets bedi!), bizia **egokiarazten** zaion bezalaxe. Xabier Kintana

Era honetara, unibertsoan gertaturiko egintza bakoitza, berori sortarazi duen eragile hurbila edozein izanik ere, Jainkoari **egokiarazten** zaio. Xabier Kintana

Ez dago alderik Jainkoari jatea edo edatea egoztearen eta mugimendua **egokiaraztearen** artean. Xabier Kintana

---

egokiera 1 *iz* aukera, zerbait egiteko ahala; egoera. ik **abagune**.

Kalte gehiago egingo zuen, **egokiera** izanez gero. Karlos Zabala

Izango zuten aurrerago ere **egokierarik**. Anjel Lertxundi

Zu ezagutzeko **egokiera** izatearren. Antton Olano

Armadan zeudenek ez zuten testamentua egiteko **egokierarik**. Iñaki Iñurrieta

Haren konfiantza bereganatu, eta, **egokiera** suertatzen zitzaionean, bai hiria bai duke handia bera ere tatariarren esku uztea. Karlos Zabala

Egokiera duen guztietan joaten omen da Triestera. Anjel Lertxundi

Gazteak, **egokiera** baliaturik, kafe etxetik kanpora egin zuen eta brixtakoan abiatu zen, atzeraka behin ere begiratu gabe. Patxi Zubizarreta

Berez ez zuen gizonak esplotatzeko asmorik baina zerbaitek bultzatzen zuen **egokierak**, **egokiera** guztiak aprobetxatzera. Matías Múgica

Adak ez zuen faktura zaharrak gogorarazteko **egokierarik** sekula galtzen. Anjel Lertxundi

Ez genuke **egokiera** hau besterik gabe igarotzen utzi nahi. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Luisak, noski, ez du **egokiera** alferrik galdu. Patxi Zubizarreta

Egokierarik ez zen sortu zenbait hilabete iragan arte. Aitor Arana

Eusten jakin huen, handik irteteko **egokiera** etorri zitzaian arte. Juan Kruz Igerabide

Paisaiaren **egokierarekin** aski zuela iruditzen zitzaidan. Hasier Etxeberria

Albornoza janzteko **egokiera** ere aztertu nuen, baina soberaxko iduritu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Elkar harturik, Susana bakarrik aurkitzeko **egokieraren** bila hasi ziren. Elizen arteko biblia

Batera nahiz bestera, argi zegoen egun hartan galdua zuela hura zentzabidean jartzeko **egokiera**. Patxi Zubizarreta

Eraikin eta obra publikoen helburua, bestalde, hiru eratakoa izaten da: bata defentsarako egiten dena, bestea erlijiosoa, eta hirugarrena **egokierari** dagokiona. Santiago Iruretagoiena

Egokiera lagun, bistaratuko dut, bai, nik egia gordea, lurraren zentroan gorderik balego ere. Juan Garzia

Orgasmo sinkronizatuak ere primeran ateratzen dira sarritan hiru lagunen artean, baina zaila da kalitatezko jendea topatzea horretarako, eta **egokiera** antolatzea ere ez da batere erraza. Karlos Zabala

Ahots-bideak hartzen duen **egokieraren** arabera, bide horretan dagoen aireak desberdin erantzungo die ahoskordetatik datorren hotz-uhin konposatuaren osagai diren maiztasunei.Baldin hori horrela bada, ez da soilik erruki iragankor bat, **egokierak** baldintzatua: da ongia egiteko asmo gogoetatua. Lourdes Oñederra

Gogo beltz, esku abil, pozoia prest; **egokiera** ere aldeko; hartarako aproposa ordua. Juan Garzia

Uste dut **egokiera** horretan esan zidala "laztana". Mirentxu Larrañaga

Egokiera, bederen, aldekoa zuen. Aingeru Epaltza

Bada jendea, **egokiera** guztietarako hitz eta jarrera egokia izaten duena beti. Aingeru Epaltza

Egokiera haietan bakarrik edaten zuen Noraren aitak. Anjel Lertxundi

Aitak orduak eta orduak egin zitzakeen **egokiera** hartan, isilik eta geldi. Anjel Lertxundi

Noiz histerikoa irudituko zitzaizun, noiz adeitsu eta gozoa: unean uneko komenientziaren araberako jarrera erakusten zuen **egokiera** guztietan. Anjel Lertxundi

Euskaltzaleak «pozteko moduko **egokieran**» daudela esan zuen Joxe Joan Gonzalez-Txabarrik. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Berlioz ezagutarazteko **egokiera** ona da hau, bai jauna. Anjel Lertxundi

Egokiera ona zuela ikusirik, gizon batzuk hautatu eta Erromara bidali zituen Jonatanek. Elizen arteko biblia

Zientzia bat bere hastapenetan dagoenean, artean lauso eta irekia delarik panorama, guztizko **egokiera** ona izaten da hori teoriak itxuratu eta ereduak eraikitzeko. Juan Garzia

Egokiera hoberik ezean. Juan Garzia

Ez nengoen, halaz ere, Fubukirekin eztabaidatan hasteko **egokiera** hoberenean. Joxan Elosegi

Egokiera handietarako gorde ohi zuten Grosrouvrek eta berak. Jon Muñoz

Pasadizo zaharretako puskak etortzen zaizkizu gogora, liburu irakurri berrietako esaldiak, kanten bertsoak, ametsetan gertatutako abenturak, **egokiera** hutsez kalean entzundako hitzak. Fernando Rey

Egokiera polita metaforak asmatzen hasteko. Anjel Lertxundi

Menelaok, **egokiera** ederra zuela ikusiz, santutegian urrezko ontzi batzuk ostu eta Andronikori erregalatu zizkion. Elizen arteko biblia

Egokiera polita metaforak asmatzen hasteko. Anjel Lertxundi

Jarrera ikusgarrian, bizikleta gainean eserita beti, **egokiera** perfektuan. Berria - Kirola

Arrasto eta aztarna guztiei adi zebilen beti, **egokierarik** ñimiñoena ere alferrik galdu gabe. Karlos Zabala

Egokiera moral eta naturalak meneko jartzen dira, **egokiera** zibilen azpian. Andres Urrutia

Jainkoak daki! hori, gainera, **egokiera** berberetan esaten den *nork daki?*-ren baliokidea da, haren bihurrera bat. Iñaki Segurola

Hauxe dugu elkarrekin egoteko azken **egokiera**. Patxi Zubizarreta

Lehenbiziko **egokieran** bortxaz lehertuko zitzaion haserre bizi hura. Karlos Zabala

Bazoazke, oraingoz. Deituko dizut hurrengo **egokiera** dudanean. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Aukera handirik ez Tomsketik hona, baina Tomsketik ekialdera, berriz, ez diat **egokiera** faltarik izango. Karlos Zabala

4 egokitzeko era.

Beraz, fedearen eta arrazoiaren elkargarritasunaren problema orokorra aristotelismoaren eta teologiaren arteko **egokieraren** arazo bihurtu zen. Askoren artean

Teknologien konstituzio soziokulturala aztertzea da haien helburua, baina inola ere ez norabide teknologikoen arteko konparaziorik edota sakoneko **egokiera**-judiziorik egitea. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken egokiera (3); **baina egokiera** (3); **beste egokiera** (4); **du egokiera** (4); **egiteko egokiera** (6); **egiteko egokierarik** (3); **egokiera baliatu** (5); **egokiera batean** (4); **egokiera baten** (3); **egokiera bila** (7); **egokiera bila hasi** (3); **egokiera bila zebilen** (3); **egokiera duen** (3); **egokiera ere** (3); **egokiera eta** (6); **egokiera ezin** (3); **egokiera guztiak** (3); **egokiera hartan** (5); **egokiera hartaz** (3); **egokiera hura** (6); **egokiera izan** (15); **egokiera izango** (4); **egokiera ona** (6); **egokieraren arabera** (3); **egokieraren zain** (3); **egokierarik gabe** (3); **egokierarik izan** (4); **emateko egokiera** (5); **emateko egokiera bila** (3); **eskuetara emateko egokiera** (3); **eta egokiera** (15); **ezagutzeko egokiera** (3); **horretarako egokiera** (3); **zuen egokiera** (4)

---

egokigarri *izond* egoki daitekeena, egokitzeko modukoa.

Truke finko baina **egokigarrizko** erregimenean, dirupolitika horiek dituzten eragin-eremu estuak, kapitalen mugimenduek oraindik dituzten oztopoek, hau da, arauzko xedapenek sortuak dira, alde batetik, eta, bestetik, ordainketa-balantzen krisi handiren bat denean, truke-tasak doitzeko aukerak sortuak. Koro Navarro

---

egokimen *iz* egokipena.

Hau da, beste hitz batzuetan esateko, metafora metaforaren gainean metatzean datzan figura erretorikoa lengoaiak bere pobretasun eta **egokimen** eza adierazkorrez huts egiten duen tokian. Joan Mari Lekuona

---

egokimendu *iz* egokipena.

Egokimendua, berriz, izaten da obrak akatsik gabeko itxura izatea, ondo frogatutako gauzen bermearekin osatua egotea. Santiago Iruretagoiena

Era berean, lekuarekiko **egokimendua** izango da gelak eta liburutegiek argia ekialdetik hartzea, bainuek eta neguko gelek hego-mendebaldetik, eta pintura-gela eta argi ona behar duten alderdiek iparraldetik. Santiago Iruretagoiena

Arkitektoak, berriz, behin asmoa bere buruan osatu duenean, ezer egiten hasi aurretik, ondo zehaztuta izaten dituela gero izango dituen edertasuna, erabilera eta **egokimendua**. Santiago Iruretagoiena

Ohiturari dagokion **egokimendua**, berriz, ikusten da barrualdeak zoragarriak dituzten eraikinetan sarrerako atariak ere egoki eta dotore egiten direnean betetzen dela. Santiago Iruretagoiena

Barrualdetik, izan ere, eraikinak itxura dotorea eta ederra izanik, sarrera pobrea eta desegokia balitz, hori ez litzateke **egokimenduarekin** ondo etorriko. Santiago Iruretagoiena

---

egokipen *iz* egokitzapena.

Egokipena: Eskola haurren beharrei egokitu behar da, arrazoi gehiagoz haurrak ahalmen urria eta hezkuntza behar bereziak dituelarik. Berria - Euskal Herria

Testu luze bat ematen hasita, egokiagoa zuan balada bera ematea, **egokipena** baino. Anjel Lertxundi

Horrek guztiak berehala salatzen du hemen bere izenean irakurri den zatia ez dela, azken finean, bere testuaren bertsio libre bat baizik, **egokipen** bat, bere testuak, segurutik, antz txikia edukiko du honekin. Jon Alonso

Berlioz zuen, ordea, gustukoena [...] eta, haren hainbat obren artean, Martxa hungariarraren pianorako **egokipena** jotzen zuen sarri eta kemen osoz. Anjel Lertxundi

Egokipen baten bidetik, azaletik beraz, arrimatu nintzen Shakespeare-rengana lehendabiziko aldiz. Anjel Lertxundi

Bürgeren baladaren **egokipena** irakurtzen hasi nintzen ni, mauka-mauka jateari ekiten niola. Anjel Lertxundi

Hainbat gaitan ez dago oraindik materialik, sortzen ari dira edo **egokipenak** egiten. Berria - Harian

Elkarrizketak agertzen dira hitzez hitz nahi izan duten bezala, beste zuzenketa edo **egokipenik** gabe. Menane Oxandabaratz

Gerard Bernard Baionako zigorren **egokipenerako** epaileak argi erran zuen 12 hilabeteko epea luzeegia zela, presoaren ingurumenak ez duela horrelako egoerarik jasaten eta sei hilabetera mugatu du eskaintza. Berria - Euskal Herria

Bildu gira zenbait egnez leku berezi batzuetan, doinuak hartu behar baitira Xano Halzuet eta Andde Karrere-ek segurtatu dute bilketa eta **egokipen** lan hori. Herria

---

egokiro *adlag* modu egokian, egoki.

Egokiro aurkez daitezke ondorengo taulan. Ibon Uribarri

Joxe Azurmendik **egokiro** azaldu du auzia: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egokiro antolatu beharreko "pieza erretorikoa" da bertso bakoitza bertsolariarentzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aurten ez da aurreko urteko beroaldi gogorra errepikatu, eta udako tenperatura apalagoak mahatsak **egokiro** ontzeko modua eman du. Berria - Ekonomia

Poztasunak hunki gizaki bat, bere burua eta bere ekintzak **egokiro** ulertzeko betegintzarrera eramana balitz, pasioak diren afektuek orain determinatzen duten ekintza horietarako gai litzateke. Piarres Xarriton

Posible ote zen hilotz batez **egokiro** arduratzea. Harkaitz Cano

Ikusiko dugunez, komunikazio teoriako hizkuntz-eredu erabat soil batek, eta gaur egun "zuzeneko osagai-analisia" deitu ohi dena biltzen duen eredu ahaltsuago batek, ezin dute **egokiro** bete gramatika-deskribapenaren eginbeharra. Itziar Laka

Guri gogaikarri egiten zaizkigun atalak, ordea, nahiko **egokiro** eta itxuraz moldatzen dira unibertso horretan. Imanol Unzurrunzaga

Kolorea ere **egokiro** aukeratua. Joxerra Garzia

Gaur egun abian diren programa guztiak **egokiro** sartzen dira planaren barruan. Berria - Euskal Herria

Imajinatu ahal izan duzu inoiz zure arrantzontziak, zeureak, bai, armaz **egokiro** horniturik eta eskifaia ausart baten eskuek gidaturik, nazien urpekariren bat hondatzeko gai izan litekeenik. Edorta Jimenez

Horra gure arbasoek nola eman zuten, labur eta **egokiro**, guk tamalez galduxea dugun senaz, kanpoan modu bateko eta etxean guztiz bestelako izateko giza joera hori. Joxerra Garzia

Ez dugu erregela hauek guztiak **egokiro** eta eredu bateratu batean adierazteko tresneria garatu. Itziar Laka

Ona baino ez duzu maite, ona baita lurra bere mendien gailurrean eta muinoen izarian eta landa zabalen leunean; ona baratze atsegin, emankorra; ona etxea **egokiro** egituratua, erosoa eta argitsua. Imanol Unzurrunzaga

Nago esaldi horrek ezin **egokiroago** islatzen duela miresten dudan bigarren Lazkano hori: Lazkano hiztun eta hizlari aparta. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egokiro azaldu (3); **egokiro eta** (5); **guztiak egokiro** (3); **hau egokiro** (4)

---

egokitasun 1 *iz* egokia denaren nolakotasuna.

Ustez aukerabide egokiena egin eta gero ere, haren **egokitasuna** zalantzan jarri zuen. Migel Angel Mintegi

Zelatan gelditzeko lekuaren **egokitasuna** egiaztatu zuen. Migel Angel Mintegi

Iraken AEBek daramaten jokabidearen **egokitasuna** azaltzeko asmoz. Berria - Mundua

Guztiz sinetsirik bainago liburuaren osotasunak erakutsiko diela atal honen **egokitasuna**. Josu Zabaleta

Zapatistek mundu zabalean izan duten arrakastaren giltzetako bat hizkera bera izan da, hizkuntza erregistroaren **egokitasuna**. Iñigo Aranbarri

Hitzak ponpoxoak dira, denak euskaldunak edo euskararen antzekoak, baina hizkuntzaren **egokitasuna** falta zaie, hitzak lotzeko modua arras bortxatua baita. Pello Salaburu

Aldaketen erritmoa ez ezik, aldaketak egiteko moduaren **egokitasuna** ere ahotan dabilen eztabaida da. Pako Aristi

Zigorrak jartzearen **egokitasuna**. Berria - Euskal Herria

Teoria neoklasikoak, ikusi dugunez, kapitalak mugigaitzak direla zioen, eta hipotesi horretatik ondorioztatzen zuen nazioarteko trukearen **egokitasuna**. Koro Navarro

Petrolio gehiago ekoitzi beharraren **egokitasuna** zalantzan jarri zuten zenbait herrialde kidek. Berria - Ekonomia

Arrakasta horrek, ekoizle-kartel baten eraginkortasuna baino areago, nazio-estrategia baten **egokitasuna** adierazten du. Koro Navarro

Komunikazioaren arrakasta edo porrota ez dago bertsolariaren ahotsaren kalitatearen baitan, aukeraturiko doinuaren eta hura kantatzeko moduaren **egokitasunean** baizik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Proposatzen den gramatikaren **egokitasuna** neurtzeko bide bat, sortzen dituen perpausak benetan gramatikalak ote diren erabakitzea da. Itziar Laka

Iritzi honen **egokitasuna**, mota askotako teorien erkatze eta garapenaren bitartez bakarrik baiezta daiteke. Itziar Laka

Baldintza biok, Hjelmslev hizkuntzalariak gogoan zituenen antzekoak dira, hizkuntz teoriaren **egokitasunaz** eta arbitrariotasunaz idazten zuenean. Itziar Laka

Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, Euskal Herria izenaren **egokitasuna**, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du. Iñigo Aranbarri

Ona izatea zerbaiten dago (gauza edo egitea izan) edo zerbaiten zerbaiterako **egokitasunean**, ez gizakiagan. Jenaro Garate

Abel **egokitasunez** mintzo zen frantsesez. Jon Muñoz

Gure ohituren kontra doa, merkataritza-espirituaren kontra eta zigorren proportzioan egon behar duen **egokitasunaren** kontra. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egokitasun politikoaren kontrako zinemak izan duen bilakaera erakutsiko du Zinemaldiak. Berria - Kultura

Geografiari, historiari eta **egokitasun** politikoari dagokien tresna administratibo lagungarri bat da; inola ere ez, gure izaera betikoaren eskakizuna. Joseba Zulaika

Hain orijinaltasun eta **egokitasun** handiz azaltzen zituen haien ohiturarik xeheenak ere, ezen bi solaskideek zeharo liluraturik entzuten baitzituzten haren hitzak. Jose Morales

Euskaldun berriak ordu asko sartu behar du **egokitasun** polit batera heltzeko, eta horixe gertatzen zaio Azurmendiri. Berria - Kirola

Egokitasun orokorra ezaugarritzat duena. Xabier Olarra

Albiste-emaileak entzun eta laburtzen ahal izan zuenaren arabera, zalantza batzuk adieraziz hasi omen baitzuen, Lusitaniako erresumarekiko eskubideei eta are erresuma hura ahotan hartzeko **egokitasun** geografikoari buruzkoak. Jon Alonso

Oso erraza da froga honi **ohiko** egokitasun akademikoaren janzkera ematea. Ibon Uribarri

Entzuleria jakin batek egokitzak jotzen duen argudioa da erretorikan argudio egokia, ez baitago kontu horretan ere berezko **egokitasunik**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertsoari **egokitasun** eta ontasun maila emango dio, dena delarik ere gaia, gai haren inguruan esan nahi dugun huraxe esateko baliagarrien diren errima-hitzak aukeratzeak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egokitasun ziurtagiria lortzea nahitaezkoa da, aukeratutako herrialdean prozesua hasteko. Berria - Harian

Hizkuntzaren egitura osoak dira aldatzen ari direnak, batez ere **egokitasun** kontuan, eta ez halako edo holako hitzen ortografian. Pello Salaburu

Argi da gramatika guztiek bete behar dituztela kanpoko **egokitasun**-baldintza batzuk; esaterako, sortzen dituzten perpausek onargarriak izan behar dute jatorrizko hiztunentzat. Itziar Laka

Lehenik, zehazki adierazi behar da (ahal dela, hiztunen jokabidearen araberakoak diren azterketen bitartez) gramatiken kanpoko **egokitasun**-irizpidea. Itziar Laka

Egokitasun-froga hori burutu ahal izateko, hiztunen erantzunetan oinarritutako gramatikaltasun-irizpideak eratzeko urratsak egin daitezke. Itziar Laka

Mutu geratu zen, bakarrizketaren **egokitasun** faltaz jabetua edo, eta niri txanda eman nahian. Lander Garro

4 elkarri dagozkien zeren arteko erlazioa; multzoen matematikan, lehen multzoko elementu batzuk bigarren multzoko elementuekin lotzen dituen erlazioa.

Intrintsekoak erraten dut, estrintsekoa dena baztertzeko, hots, ideiaren eta honen objektuaren arteko **egokitasuna** izendatzeko. Piarres Xarriton

Zer adierazi nahi du proposizio bat egiazkoa dela esateak? Hiru izan dira filosofian erantzun nagusiak: egia **egokitasun** gisa ulertzen duen teoriarena, egia koherentzia gisa ulertzen duen teoriarena eta erredundantziaren teoriarena. Askoren artean

Tarskiren egiaren teorian oinarritzen diren semantikek, perpaus baten egia-balioa berorrek errealitatearekin duen **egokitasunean** oinarritzen dute. Askoren artean

Zein da, adibidez, partikulen mekanika klasikoaren eta erlatibitatearen arteko erlazioa? murriztapenarena, muga-kasuarena, **egokitasunarena** (korrespondentzia), idealizazioarena...? Askoren artean

Estetika ez da edertasun betiereko eta absolutuaren zientzia bat, proiektu artistiko baten, artearen "toki bateko" definizioaren eta definizio horrekin lotuta dauden produkzioen arteko **egokitasunaren** ebaluazio bat baizik. Josu Zabaleta

Hizkuntza forma batzuen arteko **egokitasunak** denboraren perspektiban kokatu behar ditugu eta hizkuntza forma bakar baten berreraikuntzan gelditu, **egokitasun** horiek antzuak izatea nahi ez badugu behintzat. Isabel Arrigain

XIV. mendetik aurrera, ordea, idazkerak bereari eutsi zion, eta hizkuntzak bere bilakaerari jarraitu zion; eta hortik aurrean **egokitasun** eza handiagotuz joan zen ahoskatzearen eta grafiaren artean. Isabel Arrigain

Ikusi zen hizkuntzak elkartzen dituzten **egokitasunak** hizkuntza fenomenoaren alderdi bat besterik ez direla, hau da, erkaketa ez dela gertaerak berreraikitzeko bitarteko bat - azterbide bat- baino. Isabel Arrigain

5 (izenondo eta izenlagunekin)

Frantsesez "louer" esaten da "alokairuan eman" eta "alokairuan hartu" biak adierazteko; alemanez, aldiz, bi termino erabiltzen dira: *mieten* eta *vermieten* hortaz, ez dago terminoen arteko **egokitasun** zehatzik. Isabel Arrigain

Bana-banako **egokitasuna** dago ongi aukeratutako itxurapen-taldeen eta (15) erako diagramen artean. Itziar Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko egokitasuna (4); **bizitzeko egokitasunaren** (4); **egia egokitasun gisa** (3); **egokitasun baldintza** (3); **egokitasun eza** (3); **egokitasun gisa** (3); **egokitasun hori** (6); **egokitasun ziurtagiria** (7); **egokitasuna azpimarratu** (3); **egokitasuna ere** (3); **egokitasuna eta** (3); **egokitasuna zalantzan** (4); **egokitasunari buruz** (3); **egokitasunik eza** (3); **eta egokitasun** (5); **eta egokitasuna** (5); **eta egokitasunaren** (3); **kanpoko egokitasun** (5); **kanpoko egokitasun baldintza** (3); **lurralde egokitasuna** (8)

---

egokitu, egoki(tu), egokitzen **1** da/du *ad* helburu edo erabilera baterako egokia egin edo bihurtu; bat etorri.

Obturadorea **egokitu** zuen. Koro Navarro

Muskulu batzuek **egokitzen** dute belarriaren sentikortasuna, soinu ozenetatik babesteko. Irene Aldasoro

Bertan planteatzen ziren aldaketen aurrean munduko instituzioek **egokitu** beharra izango zutela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kontzilio Vatikano II. hark, kontu asko taxutu eta **egokitu** zituen: denen artean bat, liturgia elizakoa. Pello Zabala

Inguru berrian ugaldu ahal izateko, arrek eta emeek beren anatomia genitala **egokitu** zuten. Luis Elberdin

Léak, etxeko jantzi irekiak agerian uzten baitzizkion bular biluziak, **egokitu** egin zuen janzkera. Jon Muñoz

Poloniak, Txekiar Errepublikak eta Hungariak izango dituzte eurora **egokitzeko** oztoporik handienak. Berria - Ekonomia

Geometria **egokitu** ahal izango balitz giza ekintzen aukera kontaezin eta ilunetara, gogorrenetik ahulenera jaisten den zigor-eskailera bat egongo litzateke. Juan Martin Elexpuru

Egutegia **egokitzeko** orduan, udaberriaren hasiera edo gertuari ez baino, liturgiaren aldetiko arrazoiak hartu zituzten kontuan. Pello Zabala

Frantzisko erronka berri baten aurrean aurkitzen da: bere bizi-proiektua berrirakurri beharrean, alegia, emakume gazte haien eskakizunetara **egokitzeko**. Askoren artean

Ez **egokitu** mundu honen iritzietara. Elizen arteko biblia

Ortografia gaurko joeretara **egokitu** dut irakurlearen lana errazte aldera. Koldo Zuazo

Bertsolaritzak, biziko bada, **egokitu** beharra dauka garai berrietara hedabide berrietan sartuz. harako Prokustoren ohearen antzekoa gertatzen zaigu idatzizko poetika, eta oso gutxitan baino ez da ahozko literatura hartara **egokitzen**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Argitara askoz ere bizkorrago **egokitzen** da, gainera, begia, ilunetara baino. Josu Zabaleta

Denbora luzean esfortzu jarraituan jarduteko **egokituta** dauden muskuluak. Irene Aldasoro

Begian, berriz, erretinan irudi fokatua eratzeko, korneak [...] eta kristalinoak osatzen duten konbinazioaren foku-luzera **egokitu** eta doitu egiten da. Irene Aldasoro

Umbertoren ahots lodi hura ondo **egokitzen** zitzaion kontakizunari. Anjel Lertxundi

Alboetan bina Heinkel 51 zekartzaten, gora eta behera egiten zutenak, zakur ehiztariak bailiran bonbaketarien abiadura mantsoagoari **egokitu** beharraz urduri. Ramon Saizarbitoria

Bizidunen egitura eta gaitasunak inguruari nola moldatu edo **egokitzen** zaizkion. Askoren artean

Hurbiltasuna lortzen du mezua **egokituz** entzulegoari. Pello Zabala

Hain ongi **egokitzen** baitzitzaion izen berria izan zaharrari! Aingeru Epaltza

Tenplu sakratuaren atalek ere, halaxe, osotasunaren dimentsio totalari **egokituta** egon behar dute erabat beren neurri partzialetan. Santiago Iruretagoiena

Zigorra da, ordena hau haien naturari **egokitzen** ez zaiolako; baina, aldi berean, justizia deritzo, kulpari dagokiolako. Imanol Unzurrunzaga

Bertsolariak esan behar duenaren edukia une hartan buruan dauzkan errima-hitzei **egokitu** beharko dio.Baina ezagutzen zuen egoera bakoitzari zein jokamolde **egokitu**: onean ongi, baina txarrean gaizki, eta primeran moldatzen zen bietan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Dermisaren goiko aldea izurtsua da, eta haren formari **egokitzen** zaio epidermisaren azpiko aldea (geruza basala). Irene Aldasoro

Hortan datza, ordea, azkenaren bereizgarria, inoiz esperientziaren bat ezin zaiola **egokitu**. Ibon Uribarri

Emakumeek badakite **egokitzen**. Oskar Arana

Frantsesetik antzerkiak **egokitzen** dituena. Xabier Olarra

2 (adizlagunekin)

Guztiz apala zenez, otzantasunez betea agertzen zen gizaki guztientzat, guztien izateko modura ongi **egokituz**. Askoren artean

Gaurko mundu-eskarira gaizki **egokitzen** zaizkienak. Koro Navarro

Gogoan izanik giza motorra bat-batean abiatzen dela, karga desberdinetara automatikoki **egokitzen** dela eta erregaiari dagokionez ez dela batere milika, ikaragarria da errendimendua. Irene Aldasoro

Eta elikatzeko modu horretara aise **egokituko** gara. Edorta Agirre

Ezpata bere zorroan bezain garbi **egokitu** zen zulo angeluzuzenean. Aingeru Epaltza

Estu-estu **egokitu** zitzaizkion izter-aztalen inguru guztian, are malgutasun-itxura handiagoa emanez. Jose Morales

Argi bizitatik ia ilunpetara igarotzean, hogei edo hogeita hamar minutu behar ditu begiak guztiz **egokitzeko**. Irene Aldasoro

Buruko musuzapia hobeki **egokituta**, txiskeroa atera zuen sakelatik. Alberto Ladron Arana

Whittaker andrearen janzkera artatsuki **egokitzen** zen beti abagune bakoitzera. Mirentxu Larrañaga

Gaur egungo errutinak agintzen duenaren aurka, helendarren lehen testuak ezin baitzaizkio erraz **egokitu** urliari edo sandiari. Askoren artean

Zaharrena, argiena eta giza arrazoimen arruntari gehien **egokitzen** zaiona da. Ibon Uribarri

Nola den posible matematikak horren biribilki eta beteginki **egokitzea** errealitateko egite eta gertakariei. Iñaki Segurola

Mintzairaren estudioak bere helbururen benetako izaerara **egokitu** behar du enpirikoki. Isabel Arrigain

• **3** du *ad* jarri, ezarri.

Maria bainutarako aluminiozko eltzetxo bat **egokitu** nuen. Juan Garzia

Ordurako, sarrerako guardiek itxia zuten atetzarra, eta burdin-ziriak eta gainerako euskarriak beren zuloetan **egokitzen** ziharduten. Pedro Alberdi

Dabidek hala proposaturik nahi izan zuelako, egongelan **egokitu** genuen eskultura zulodun hura. Patxi Zubizarreta

Gaitza egiten zitzaien eguneroko bake arruntaren bizimoduan gerra legeak, kartzelak eta torturak **egokitzea**. Hasier Etxeberria

Jainkoak ordea une latz honetan ahalmen eta indarren arabera bakoitzari **egokitu** digun lekuan eutsiko dugun itxaropena dauka. Urtzi Urrutikoetxea

Traba egiten dizu pistolak gerrian, bere lekuan **egokitzen** saiatu zara disimuluz. Rafa Egiguren

Denbora guztian binaka ibili gara eta patuak zorionez Rubenen alboan **egokitu** nau. Patxi Zubizarreta

· Neskari bizkarra emanez **egokitu** zen. Patxi Zubizarreta

Arratsean, bakarrik **egokitu** zen karaoke-tabernako mahaian. Jon Muñoz

Gorputzeko beste toki batetik edo hezur-banku batetik hartutako hezur puska bat hartarako moldatu, eta hutsartean **egokitu** daiteke. Irene Aldasoro

Ahalik eta erosoen **egokitu** gara, aduanako bankuetan edo lurrean bertan, baina ezin oroitu zertan eman dugun denbora. Urtzi Urrutikoetxea

4 egokitasun baten bidez elkartu.

Oro harrezko hirukiaren adigaiari inoiz ez litzaioke hiruki baten ezein irudirik **egokituko**. Ibon Uribarri

Ez ditugu bereizten H1ren sisteman alofono liratekeenak, ezta gure fonema inbentarioarekin **egokitzen** ez diren H2ren hotsak ere. Lourdes Oñederra

• **5** da *ad* gertatu, aurkitu, egokiera izan.

Egokitzen gara drama batekin hamabi urte ditugunean, eta handik aurrera beste era batean begiratzen diogu errealitateari. Bernardo Atxaga

Badakik nor den, ezta? Raquel Welchekin **egokitu** zen artzain hura, Sanson esaten genion harekin zihoana. Bernardo Atxaga

Neurriak hartzen zituen, behar zirenak eta ez zirenak, sendagilearekin ez **egokitzeko**. Bernardo Atxaga

Sua aurkitu izanaren ondorioz, biltzarrak sortu ziren gizonen artean eta elkarketak eta elkarren arteko bizitza jaio ziren, eta leku bakar batean gizon asko **egokitu** ziren batera. Santiago Iruretagoiena

Bidaldian Sedanorekin **egokitu** nintzenez, Aranjuezera txango bat egiteko profitatu genuen. Ramon Saizarbitoria

1973. urtea zen, eta Bilbon **egokitu** nintzen, lapurtera klasikoaren jarraitzaileen gotorlekuan. Koldo Zuazo

Nire gustuak ez dira **egokitu** zaidan garaiarenak, ezin ukatuko dutHorrelakoetan **egokitzen** dira elurte sonatu horietakoak ere. Anjel Lertxundi

Agirre **egokitu** zaizu bikotekide. Rafa Egiguren

Hau izaten da lehenbiziko kontuetakoa, ni neu meteorologiako jende adituekin **egokitzen** naizenean. Pello Zabala

Zorionez, ez zitzaidan **egokitu** bidaia Egurenekin egitea. Juan Garzia

Erretiroa hartu aurretik, Musikaren Historia irakatsi beharra **egokitu** zitzaion zenbait urtez. Imanol Zurutuza

Karrera amaitzear nengoela, Euskal Herriko Gerra Zibilaz lan bat egitea **egokitu** zitzaidan. Iban Zaldua

Eta zuek beti zaudete hemen, herrian? -galdetu zuen azkenean Txitxikovek, abagunea **egokitu** zitzaionean. Jose Morales

Lan handia egiteko aukera ederra **egokitu** baitzait. Elizen arteko biblia

Elkarrekin giltzatzeko modua izan behar dute hezurrek, hau da, bata besteari loka **egokitzekoa**, hartara indarra eta energia transmiti daitezen. Irene Aldasoro

Beste partikulekiko hamar mila milioireneko soberakin hori hantxe **egokitu** ez balitz, gure unibertsoa ez zen existituko, edo ez, behintzat, ezagutzen dugun itxura horrekin. Juan Garzia

Nik diosal egin nien ondoan **egokitu** zitzaizkidan ibiltari eta baserritar guztiei, eta baita neuri haiek ere. Juan Luis Zabala

6 egoki etorri.

Jatorri klasikoa zuten koadroetako biluziak zuzen-zuzen **egokitzen** zirela hierarkia handiko pertsonaien gorputz jantziekin. Bernardo Atxaga

Hori lortzeko obraren elementuak **egokitu** behar dira elkarrekin, altuera zabalerarekin, eta zabalera luzerarekin, eta azken finean elementu guztiak jarri behar dira bakoitza bere proportzioaren arabera. Santiago Iruretagoiena

Badirudi egindako giza baliabideen kudeaketa ez dela ondo **egokitu** ikasleen kopuruen aldaketekin. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

7 zozketa, banaketa edo kideko batean onuradun-edo gertatu.

Zotz eginik, Matiasi **egokitu** zitzaion eta beste hamaika apostoluekin elkartu zuten. Elizen arteko biblia

Huskeriaren bat, loteria **egokitzea** edo? Bernardo Atxaga

Gaur niri **egokitu** zait haren galderei erantzutea. Patxi Zubizarreta

Juliori **egokitu** zitzaion zenbatzea, eta besteok abiada bizian sakabanatu ginen oihan txikian barrena. Aritz Gorrotxategi

Azken batean, dauden baliabideak askoren artean banatu behar direnez, baliteke bakoitzari gutxi **egokitzea**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Inor ez da konforme **egokitu** zaion zortearekin. Jon Alonso

Hara non 3223 zenbakia **egokitu** zitzaidan. Javi Cillero

Txanda **egokitu** zitzaidanean, dirua, erlojua, patrikako labana eta beste gauza guztiak euren aurrean mahai gainean utzi behar izan nituen. Urtzi Urrutikoetxea

Halako batean, Marius Lippiri **egokitu** zitzaion txanda. Karlos Linazasoro

Aita erdi alkoholiko alde eginaren opari genetiko bat **egokitu** zitzaion tamalez: baserritarren hezur handiko gorputz horietako bat. Oskar Arana

8 (era burutua izenondo gisa)

Horrez gain, kopilotuak musikaz eta aire **egokituaz** ere arduratu behar izaten du. Patxi Zubizarreta

Gure trena (Campeche-Palenque-Coatzacoalcos) nik uste baino hobea suertatu zen: diesel-makina eta lau bagoi, aire **egokitu** eta guzti. Joxe Austin Arrieta

Etxekoandreak paratzen zituen bere laborategian eta orain ontziratuta hartzen ditu apalategitik, beren ontzi **egokituan**, mikrouhin labean hiru minutu egin eta mahaira eroateko pronto. Edorta Agirre

Alzheimerraren fase bakoitzean botika **egokituak** behar dira? Berria - Gaiak

Egun-pasa ibiltzeko leku **egokitua**, haritz motak bereizten ikasteko ibilbidea eta naturak bere kabuz sortutakoa ikertzeko basoa. Berria - Euskal Herria

Materialari dagokionez, talde eta behar berezietarako ikas-material **egokituak** egiten jarraitzea eta lan-lerro hori indartzea proposatu du EABk. Berria - Euskal Herria

ACB Ligan ikusle kopuru handienaren marka Madrilgo zezen plaza **egokituak** du, Estudiantesek 15.000 ikusle elkartu izan dituelako Vista Alegren. Berria - Harian

Mediatekan zein dantza eta musika kontserbatorioan, guztiek ikus-entzunezko baliabide **egokituak** ukanen dituzte. Berria - Kultura

Herri Kirol **Egokituaren** Lehen Erakustaldia eskainiko da ordu batez. Berria - Kirola

Itzulpen hori, ordea, modu lasai eta **egokituan** egin dugu, testua hitzez hitz iraultzeko xederik gabe. Jose Antonio Mujika

Donegan-ek eta Stampe-k (1979, 128) diotena ia bere horretan ekarriko dut hona gutxi gorabeherako itzulpen **egokituan**: [...]. Lourdes Oñederra

Testamentu Zaharreko lehen liburua da, irakurle, eskuetan duzun hau, bertsio **egokituan** emana. Jose Antonio Mujika

Egungo gizartearen balioen aitzinean, Samuelek ez du amore eman nahi eta gogor eusten dio desiran bermatutako jarrerari; semea, aldiz, **egokitu** bat da, eta gizarte modernoaren erosotasunak eta gurikeriak mendean hartu dute. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

alboan egokitu (7); **aldiz egokitu** (5); **arabera egokitu** (8); **arabera egokitu behar** (4); **aritzea egokitu** (4); **asko egokitu** (4); **aurka jokatzea egokitu** (4); **aurre egokitu** (8); **aurrean egokitu** (5); **aurrez aurre egokitu** (8); **azkar egokitu** (4); **bartzelona egokitu** (4); **bat egokitu** (35); **bat egokitu zitzaion** (7); **batean egokitu** (17); **batekin egokitu** (8); **batera egokitu** (4); **bati egokitu** (7); **batzuk egokitu** (4); **behar bezala egokitu** (7); **beharra egokitu** (10); **beharra egokitu zitzaion** (4); **beharretara egokitu** (16); **beharretara egokitu behar** (5); **berari egokitu** (15); **berari egokitu zitzaion** (7); **berrietara egokitu** (14); **berrietara egokitu behar** (4); **berrira egokitu** (23); **berrira egokitu behar** (7); **berrira egokitu beharko** (6); **bertan egokitu** (4); **bezala egokitu** (9); **bikain egokitu** (4); **bizitzea egokitu** (24); **edo egokitu** (5); **egitea egokitu** (21); **egitea egokitu zitzaion** (4); **egoera berrira egokitu** (9); **egoerara egokitu** (4)

bere egonaldiaren (4); **egin zuen egonaldiaz** (4); **egindako egonaldietan** (4); **egonaldiak egiteko** (3); **egonaldiak egiten** (4); **egonaldiak eta** (3); **egonaldiaren azken** (4); **egonaldiaren helburua** (3); **egonaldiaren ondoren** (4); **egonaldiaren ondotik** (4); **egonaldiaz geroztik** (4); **eta egonaldiak** (3); **nire egonaldiaren** (3); **zuen egonaldiaz** (4)

---

egonalditxo *iz* egonaldi laburra.

Abuztu oro bezala, Donostiara etorria zen udako **egonalditxoa** egitera. Koldo Izagirre

Sizilian **egonalditxo** bat egin ondoren, Erromara itzuli eta han bizilekua harturik, idazle talde batekin harremanetan hasi zen. Josu Zabaleta

Adiskide batek probintzia bateko hiri txiki batean **egonalditxo** bat egitera gonbidatuta nengoen. Josu Zabaleta

Mexikora joatekoa zen, eta atzeneko unean **egonalditxo** bat egin nahi zuela Habanan esan zuen. Koro Navarro

Kaushalyak behin eta berriz eskatu zion senarrari gurasoekin **egonalditxo** bat egiteko baimena. Gotzon Garate

---

egonarazi, egonaraz, egonarazten du *ad* egotera behartu.

Isilik; ez ginen hitzik ateratzeko gauza; aita, ezeren berri ez zekiela, juduen erruki etxera bisita batzuk egitera joana zela pentsatze hutsak, ama noiz itzuliko egon beharrak, beroak, larritasunak, horrek guztiak isilik **egonarazi** gintuen. Josu Zabaleta

Errealitatearen eta gogoaren artean zalantzan bizi gara beti, nahinora alde eginarazten digun geratzeko beharrarekin, eta gauden lekuan geldirik **egonarazten** digun alde egiteko premia larriarekin. Joseba Sarrionandia

Zaila zen elkarrizketa arrunt baten ukaitea oraintxe ezagutua zuen osabarekin, bera jarririk izanik ere, zutik **egonarazi** zuenarekin. Elena Touyarou

Ileetatik zintzilik ere **egonarazi** zuten, etengabeko galdeketak egiten zizkioten bitartean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pepponek greba orokorrera deitu eta beso-gurutzatuta **egonaraziko** gaitu denok. Koldo Biguri

Gorroto zuen zapalketa, ez zegoen beste konturik; esan gabe adierazitako axioma bat sartua zuen gogoan, zapalduaren alde eta zapaltzailearen aurka berez **egonarazten** ziona. Jon Muñoz

Zaintzaleak, edozoin gisaz, lehenik beha **egonarazten** zaitu, beha egon behar duzu zaintzalea deitzen duzunean, bera etorri arte, beha egon behar duzu zure eskaera pausatu ondoan erantzuna ukan arte. Filipe Bidart

Sendagileek urdaila berriro itxi, hiru astetan ondo janez ohean **egonarazi** eta gero etxera bidali zuten. Josu Zabaleta

Aparkalekuan **egonarazi** zituzten. Berria - Euskal Herria

Pomfrey andreak eritegian **egonarazi** zuen Harry asteburu osoan. Iñaki Mendiguren

Lagun asko bultzatu ditu herriaren biziari alaitasuna sortarazterat eta ohiduretan berme **egonarazterat**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

geldirik egonarazten (3)

---

egonarri 1 *iz* eramankizuna, pairakortasuna; patxada.

Ez da fantasia hutsa zerua, hodeiak, ilargia eta izarrak ikusteak **egonarria** eta sosegua ematen dizkidala esatea. Josu Zabaleta

Joycek ez zeukan **egonarririk** liburuetarako eta ez-irakurle peto-petoa zen. Oskar Arana

Egonarria eskatu die herritarrei George Bushek. Berria - Mundua

Gogorra izango naiz, eta hori ere iritsiko da, **egonarri** pixka batekin, baina badirudi ni nabilkiola beti atzetik, eta horixe da okerrena. Josu Zabaleta

"Zein da, bada?" galdetu zuten, ordurako **egonarria** galduz. Urtzi Urrutikoetxea

Mutilek eta nik ez genuen **egonarririk** galdu. Urtzi Urrutikoetxea

A ze amorrua neure buruarekin, zerbitzari txatxu hark [...] **egonarria** galarazi zidalako. Joxe Austin Arrieta

Ia ez nuen **egonarririk** bizitzako lan serioetarako. Irene Aldasoro

Ea bada, **egonarriz** eramazu. Joan Mari Lekuona

Baina dena jasan zuen gure protagonistak, adoretsu eta **egonarriz** jasan ere, eta, azkenean, lana aurkitu zuen aduanan. Jose Morales

Besteak **egonarriz** ekin zion bereari, haur bati ari balitzaio bezala. Juan Garzia

Egonarriz, kemenez eta pairakortasunez betetako gizona. Oskar Arana

Hitz-jarioa, **egonarria**, sinpatia... Karlos Linazasoro

Ez da zuhaitz dotoreetakoa, bai alaia, lan xumearen irudia, **egonarri** eta pazientziaz emaitza ontzen dakiena, zuhurtziaren begirada xaloa duena. Pello Zabala

Paperak **egonarria** luze. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lau egun eta lau gauetan doktorea ez zen atera bere langelatik, eta **egonarri handiz** eta hiztegien laguntzaz, nola edo ahala, eskuizkribu haren aleman eta espainol aldiak deszifratu zituen. Josu Zabaleta

Ez naiz **egonarri** handikoa. Aingeru Epaltza

Baina alaba **egonarri** gutxikoa da, ez du sinetsi gura. Urtzi Urrutikoetxea

Baieztapen horrek, ene ustez, **egonarri** gutxiko izaera erakusten duela esan behar dut. Antton Olano

Nolako nekeak nireak!, nolako **egonarri** burdinazkoa! Jose Morales

Albert Matsonek eta bere emazteak esperoan sumatzen zituzten ahaideak, atezuan dagoen zelatariaren **egonarri** itxaropentsuaz, euren heriotzako orduaren alde otoika. Mirentxu Larrañaga

Eta azkenik, bekokian, ile artean kartoizko izar handi bana jarri zuten, txokolatearen zilar paperez **egonarri** handiz bilduak. Josu Zabaleta

3 oinarria, zimendua, euskarria.

Arimak maite badituzu, Jaungoikoagan maite itzazu, hauek ere aldakor baitira eta harengan dute **egonarria**. Imanol Unzurrunzaga

Proposamen horien azterketak, halere, beti eramaten gaitu ondorioztatzera oinarri guztiz formal batek bakarrik eskain dezakeela gramatika teoria eraikitzeko **egonarri** sendo

eta emankorra. Itziar Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egonarria eta (3); **egonarria galdurik** (4); **eta egonarri** (7); **eta egonarriz** (4)

---

egonarrigabe *izond* egonarririk gabekoa.

Espainola arraza tirtiriku, **egonarrigabe**, indiziplinatu bat da, ezgauza ezer ganorazkorik eta iraunkorrik jasotzeko, ez zientzian, ez artean, ez biziera politikoan. Joxe Azurmendi

---

egonarritsu *izond* egonarriz betea.

Hunkitu gabeko judu mugigaitzek harrigarriro arrakastatsua zen kristautasunari buruz agertzen zuten "destaina sakon **egonarritsu"** hori ez zen kristauentzat hain gogaikarria gertatuko. Iñaki Mendiguren

Egonarritsu bihurtzen ari ote zarete? -galdetu zien Ruche jaunak, ironiaz-. Jon Muñoz

Emakume batekin topatuko bainintzen, gazte eta hezur-mamizkoa bera, zeinaren berotasuna neure saihetsaren kontra sentitzea ez baitzidaten soingainekoek eragozten; alai hiribideetako lanbro hezearen erdian; **egonarritsu**-jakintsu-ziur, artean hondakinez josiriko espaloietan barrena gindoazela. Juan Garzia

---

egondu ik **egon**.

---

egonez *(orobat **egoneza** g.er.) iz*

Guzmudek berak ere ez zuen bere **egoneza** nabarmenarazi nahi. Xabier Mendiguren Elizegi

-Horrek ez al du **egoneza** sortuko ejerzitoan? Pako Aristi

Hain zen nabaria txoriaren tema bitxi hark Lawrenceri eragiten zion **egoneza**, non goiz batez, Lawrence kanpoan zela aprobetxatuz, bere adiskide batek karabina hartu eta hil egin zuen. Bernardo Atxaga

Zuzendaritzari, lantegiko giroa hobetu beharrean, langileen **egoneza** areagotzeko jarrerarekin jarraitzea leporatu diote. Berria - Ekonomia

Baina bestelako tenperamentua baldin badaukazu, alegia laudorio beharra, alegia adore beharra, **egoneza** hasten zaizu. Anton Garikano

Egoneza ez zaio samurtu. Pako Aristi

Harantz abiatzen nintzen, bada, **egonezak** edota goibel puntu batek ukitzen ninduen bakoitzean. Hasier Etxeberria

Poza baino gehiago, tristura eta **egoneza** ekarri ditu Realak handik. Berria - Kirola

Zirrara eta **egoneza** eragiten zizkidan zama moduko bat neukan sabelean. Xabier Mendiguren Elizegi

Jendearen aurpegietan ikusten ditudan izuak, **egonezak**, inarrosten naute. Berria - Euskal Herria

Sararen **egonezaren** zergatia ulertu izan balu bezala. Iban Zaldua

Hil-kanpaien izuzko **egoneza**. Karlos Linazasoro

Egonezaren arrazoi nagusia da berezitasun horiek ez direla onartzen. Berria - Euskal Herria

Izugarrizko **egoneza** sentitzen zuen, baita gorputzekoa ere. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta egoneza (3)

---

egonezin *(ETCn **2.178** agerraldi)* **1** *iz* ezinegona.

Egonezina handitu egin zen entzuleen baitan, hanpatu eta barreiatu, ez baitzeuden ohiturik benazko musika entzutera. Felipe Juaristi

Gure **egonezina** erakusten zuen isilune jasangaitza apurtzearren. Patxi Zubizarreta

Elurrak estaltzen zigun ikusmena, elurrak ahultzen kemena, elurrak ekartzen guregana hildakoen **egonezina**, hildakoen ezina, hildakoen isiltasuna. Felipe Juaristi

Emakumeek bazakitek nola iratzarri gizonon **egonezina**. Anjel Lertxundi

Pasadizoa eta xehetasunak ahoz aho zabaldu ziren, eta auzokideengan harridura eta **egonezina** eragin zuten. Patxi Zubizarreta

Hermannengan biltzen ziren nire beldur eta **egonezin** guztiak. Anjel Lertxundi

Niretzat ez da lasaitasunik, ez patxadarik; atsedenik ez, **egonezina** baizik. Elizen arteko biblia

Pianoaren aurrean arintzen nuen **egonezina**. Anjel Lertxundi

Egunero bizi zituzten **egonezin** eta larrimin isilak, ezin zutelako jakin nolakoa izango zuten etorkizuna. Anjel Lertxundi

Egonezinak eta nahigabeak hartua sentitu zen. Patxi Zubizarreta

Tecal 40 enpresako lan batzordeak «**egonezina** eta harridura» azaldu zuen atzo prentsa ohar baten bidez. Berria - Ekonomia

Berehala kezka eta **egonezina** nagusitu dira gure artean. Berria - Kultura

Egonezina zerak sortzen zidan, gure bidoien binbilikak. Joxe Austin Arrieta

Asko kostatu zait **egonezinari** eustea, baina ez diot barrengo haserrea hustu. Anjel Lertxundi

Hantxe sentitzen omen zen libreen, paisaiak baretzen omen zion itzulerak sortutako **egonezina**. Anjel Lertxundi

Badirudi ez dutela oraindik aurkitu denboraldiko lehenengo bildumaren aurkezpenak sortzen dien **egonezina** gainditzeko modurik. Patxi Iturritegi

Ximunen beste alde batek gogoetatu nau: erran dit boteredunen asmoa militanteen **egonezina** engainatzea dela, promesak mahaian zerbitzatuz. Piarres Aintziart

Ezpainak zimurturik, barrenean zeukan **egonezinaren** zergatikakoa atera zuen azkenean. Anjel Lertxundi

Bere **egonezina** irribarre batez jantzi du. Patxi Zubizarreta

Hasieran ondorioztatu nuen ene zaintzan zeudela; gero, ene **egonezinez** kutsatuak zirela, zakurrak kutsatu ohi diren gisara. Juan Garzia

Marmarka hasi zen, katakumeak kendu dizkioten katama baten **egonezinez**. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Harik eta esku batzuek haren sorbaldetara iritsi eta haren **egonezin** larria geldiaraztea lortu zuten arte. Juan Garzia

Orduan alde egin nuenean, Mikel ez zegoela lotan sumatu nuen, baina neure baitan **egonezin** handiegia nabaritzen nuen berarekin gaua eman ahal izateko. Patxi Zubizarreta

Une batez atxikiz gero, erosotasun eta segurtasun sentimendu horren tokia **egonezin** sakonak hartzen zuen: koloreak, zaporeak, usainak ez ziren sekula egiazkoak, sekula ere ez ziren, zintzoki, haiek soilik. Monika Etxebarria

Zein izaki bitxia, kezkagarria, bere inguruan halako **egonezin** bat, arimaren eta gorputzaren halako **egonezin** lauso bat, naturaz gaindiko eraginetan sinetsarazten duten larritasun ezin ulertuzko horietako bat zabaltzen zuena. Josu Zabaleta

Abasek lortua zuen neskaren **egonezin** porrokatzaile hura doi bat eztitzea, baina begien bistan zegoen hura ez zela bere gogobeteko gizona. Patxi Zubizarreta

Indian, **"egonezin"** politikoa hemeretzigarren mendearen bukaera aldera hasi zen agertzen. Iñaki Mendiguren

Egun osoa irakurtzen pasatzen badut, egunari etekinik aski zukutu ez izanaren halako **egonezin** mingots batez oheratzen naiz oraindik ere. Anjel Lertxundi

-Eskerrik asko laguntzeagatik -esan nion, **egonezin** oinazetsuz, gizon beltzez jantziari. Anjel Lertxundi

Hona bizitzera ekarria zuenetik, haren ondoan pasaturiko beste gaurik ez zekien, gau minberatu, **egonezin** azkengabeko gauok baino. Juan Garzia

Egonezina jasangaitza da sarri askotan. Berria - Kirola

Joan nintzen egunekoak zehaztu eta ordenatzeak ekarriko ahal dit nire barruko **egonezinak** beharrezkoa duen ukendua! Anjel Lertxundi

Bizarra zuritzen hasia zitzaion, bekokia zimurtzen, begiak txikitzen, barneko **egonezinak** lainotu egin balu bezala kanpoko guztia. Felipe Juaristi

Barreneko **egonezinak** korapilatu egiten dizkio tripak, eta jateko gogoa kendu dio. Paddy Rekalde

Eskuak lepo gainean jarri zizkidan, neu baino arrabete txikiago zen hark, eta keinu haren bidez nigan halako **egonezin** urduri bat eragin zuen. Edorta Jimenez

Zinez artega eta bere onetik aterea ikusi dut, opor hasiera honetan oraindik ere urtean zeharreko **egonezina** kendu ezinik balute bezala. Patxi Zubizarreta

3 (hitz elkartuetan)

Berriro ere, oraingoan barne **egonezin** honen eraginez, bide horretan noala esaten didate denek. Patxi Zubizarreta

Halere, bere barne **egonezinak** ez zion atsedenik ematen, harik eta 373.ean hemeretzi urterekin bere bizitzaren ildoa betiko markatuko zuen zerbait gertatu zitzaion arte. Imanol Unzurrunzaga

· Komunikabide arabiarren arabera, Israelek Hamaseko burua hil izanak Ekialde Hurbil osoa odol isurtze, indarkeria eta **egonezin** aro batean murgilduko du. Berria - Mundua

4 (izenondo gisa)

Gizon alaia da Jeff Bridges, eta **egonezina**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere egonezina (9); **duen egonezina** (3); **egonezin eta** (3); **egonezina eragin** (6); **egonezina erakusten** (3); **egonezina eta** (12); **egonezina handitu** (3); **egonezina sortu** (7); **egonezina sortu du** (3); **egonezina sortzen** (5); **eta egonezin** (10); **eta egonezina** (17); **halako egonezin** (6); **nire egonezina** (4)

---

egonezintasun *iz* egonezina.

Armiarma bezain higuingarri ez, tximeleta bezain erakargarri ere ez, **egonezintasunaren**, barregarrikeriaren eta ezertarakoezaren irudi bizia da. Juan Garzia

Horrez gain, burtsak %16 inguru egin zuen behera, **egonezintasunaren** beldur. Berria - Mundua

---

egonezintsu *izona* eginezinez betea.

Giuliak, ordea, normalean ere aski **egonezintsua**, arriskuan jartzen zuen arratsalde hartan eskifaiaren oreka. Juan Garzia

Berarentzat desberdin zen: beraren zainetan aitaren odola zebilen, urruneko pirata-hartzigarritan, merkataritza-ekinbidetan eta berri-grina **egonezintsutan** aberats. Juan Garzia

---

egoneztasun *iz* egongaiztasuna.

Egoneztasunak urduritasun handia eragin zuen eta ekainean zeukan maximotik %5era utzi zuen upelaren prezioa. Berria - Ekonomia

---

egongaitz *iz* egonkortasunik gabea.

Emakume lanpetuen esku **egongaitzak**: lehorrak, beroak, lakarrak. Anton Garikano

Material **egongaitza**. Edurne Elizondo

Berniz bat sustantzia **egongaitza** da definizioz. Juan Garzia

Aurreko autoan, balaztatzeko unean atzaldea oso **egongaitza** zen. Berria - Kirola

Bigarren horma hartzen duten ezpondak **egongaitzak** eta iragazkorrak dira. Edurne Elizondo

Urtegiko ezker magala **egongaitza** dela azpimarratu du behin baino gehiagotan Casasek. Berria - Euskal Herria

Geruza horiek oso **egongaitzak** dira, eta bata bestearen gainean erortzeko arrisku handia dago, magalaren maldak eta geruzen planoek alde berera egiten dutelako. Edurne Elizondo

Cumbre Vieja sumendia nahiko **egongaitza** da, eta eroriko balitz, milioika arroka tona jaurtiko lituzke. Berria - Mundua

Ia berrogeita hamar urteren buruan, haren espiritu **egongaitzak** oraindik gure etxea bisitatuko balu bezala. Juan Garzia

Afganistanen talibanen agintea bukatu eta bi urte baino gehiagora [...] herrialdeak egoera **egongaitzean** segitzen du. Berria - Mundua

Berez bultzatzen zuten horretara bere izaera **egongaitzak** eta bizitasun urduriak. Jose Morales

Doktrina hori sasoi zail eta **egongaitzetan** nagusitzen da, eboluzionismoa, berriz, oparoaldietan. Askoren artean

Hierarkia, antolamendu eta osagarritasunezko printzipioetan oinarrituriko nazioarteko sistema ekonomikoaren oreka **egongaitzetik**, beraz, munduko ekonomiaren egiturazko egongaiztasunera igaro gara. Koro Navarro

Munduko eremu **egongaitzetatik** inportatzen den petrolioaren menpekoa da Amerika. Berria - Mundua

Enplegu **egongaitzak** oso lotura estua du lan istripuekin. Berria - Ekonomia

Lehen Lan Kontratua atzera bota izanak ez du esan nahi gazteentzako kontratu **egongaitz** guztiei agur esan zaienik. Berria - Harian

Europan **egongaitza** den estatu bat izatea komeni zaie: Europa egonkorra den heinean, indartsuagoa izan daiteke, eta indartsuagoa den heinean, Ameriketako Estatu Batuen hegemonia zalantzan jar dezake. Berria - Mundua

-Zu bai **egongaitza**, Martin -esan zuen Brionesek. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera egongaitzak (4); **egongaitza dela** (5); **egongaitzak eta** (3)

---

egongaiztasun **1** *iz* egongaitza denaren nolakotasuna.

Erresuma Batuko Psikologia Elkarteko kidearen arabera, familien **egongaiztasunak** eragina du fenomenoan. Berria - Gaiak

Finantza-sistemen desarautzea eta **egongaiztasuna**. Koro Navarro

Trukeen eta tituluen merkatuen **egongaiztasuna**. Koro Navarro

Lehenengo kasuak truke-tasen **egongaiztasuna** ekarriko du nahitaez. Koro Navarro

Azpikontratazioen baldintzak eta **egongaiztasuna** gutxitzeko neurriak. Berria - Ekonomia

Prezioen **egongaiztasuna**, bestalde, eskaintzaren epe laburreko elastikotasun ezak ere indartzen du. Koro Navarro

Gobernuak eta oposizioak **egongaiztasuna** bultzatzea leporatzen diote elkarri. Berria - Mundua

Banku-sistemen **egongaiztasunak** berriz ere piztu zuen finantza- sistemek pairatzen dituzten arriskuei eta haiei aurrea hartzeko moduei buruzko eztabaida. Koro Navarro

Horrek areagotu egingo du lehendik ere zalantzazkoa den bake prozesuaren **egongaiztasuna**. Berria - Harian

Egongaiztasunezko lehen osagai bat asiar eremu honetako konkurrentziaren baldintzen distortsioari dagokio. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Krisiek berehalako eragina izaten dute, eta **egongaiztasun** handia sortzen dute. Koro Navarro

Meatzaritzari dagokionez, ez da inbertsiorik egiten **egongaiztasun** politiko handia duten herrialdeetan, Afrikan bereziki. Koro Navarro

Gobernuaren politikak eragiten duen **egongaiztasun** instituzionalari aurre egitea. Berria - Mundua

Zabalkunde horrek eskuraturiko abantailen **egongaiztasun** etengabea ekarri ohi du. Koro Navarro

Gazteek baliabide gutxiago eta **egongaiztasun** ekonomiko handiagoa dutela aitortu du kutxak. Berria - Ekonomia

Egongaiztasun domestikoa genetikoki transmitituko balitz bezala. Berria - Kultura

Diru- **egongaiztasun** kronikoa sortzen da finantza-globalizazioak munduko hazkundeari ekarri dion dinamismoaren ordainetan. Koro Navarro

Munduko ekonomiaren egiturazko **egongaiztasunera** igaro gara. Koro Navarro

Truke-tasa malguen erregimenaren berezko **egongaiztasuna**. Koro Navarro

Handiagoak dira, beraz, geruza erortzera bultzatzen duten indarrak, bere horretan mantentzen dutenak baino, eta horren ondorioz, **egongaiztasuna** ikaragarria da. Edurne Elizondo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

40 urteren buruan **egongaiztasun** maila berean egongo gara. Berria - Ekonomia

Nazioarteko finantza-sistemaren **egongaiztasun**-arriskuaren aurrea. Koro Navarro

Mazela honek baditu **egongaiztasun** zantzu nabariak. Edurne Elizondo

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Kateatze horiek [...] finantza-merkatuei eragindako hustearen ondorio **egongaiztasun**-eragileak. Koro Navarro

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Desarautze-politikak, bere aldetik, komunikazioen iraultzarekin batera, finantza-globalizazioaren prozesua sendotu du [...] eta baita prozesu hark nahitaez behar zuen ordaina ere, hots, diru- **egongaiztasuna**. Koro Navarro

Atzo bezala, Batzman eta Antxon superheroiak kalera aterako dira ere lan **egongaiztasuna** salatzera. Berria - Ekonomia

Korsikak pairatzen dituen hainbat gaitzek langabezia, gizarte **egongaiztasuna**, erbesteratu beharra hazi egiten dute horrelako egitateak gertatzea? Berria - Mundua

Finantzaketa zuzenaren mekanismoak garapen-bideko zenbait herrialdetara zabaltze hori [...] finantza- **egongaiztasuna** gero eta handiagoa delarik gertatzen da. Koro Navarro

behar estatubatuar ekonomiak munduko finantza-merkatuei eragindako hustearen ondorio **egongaiztasun**-eragileak. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diru egongaiztasuna (4); **egongaiztasun handia** (3); **eta egongaiztasun** (3); **eta egongaiztasuna** (3); **ondorio egongaiztasun** (3)

---

egongela **1** *iz* egungo etxeetan, egoteko gela.

Egongela besaulki bi eta sofa bat zen eta milaka tapete eta piano bat eta egur iluna eta erloju bat, barrokoa, eta hiru leiho eta zenbait koadro eta figura ugari, kristalezkoak asko. Unai Elorriaga

Sala luze-zabal bat, non egiten baitziren zelebrazione handiak, eta bertze bat tipiagoa, **egongelatzat** eta bisitagelatzat ere har zitekeena. Joan Mari Irigoien

Liburuen lerro txukunak, **egongela** langela bihurtzen zuen idazmahai apaina, zutikako erloju distiratsua. Koro Navarro

Naturari eta ekologiari buruzko aldizkariak pilatzen dira beaumontarren bulegoko **egongelan**. Edurne Elizondo

Sukaldea, komuna, gelak eta **egongela** ditu. Berria - Kultura

Hiru aldaketa ekartzen dituzte lan horien bidez: ezenatokia ordokitzen eta luzatzen dute hamalau metro arte, jarleku gunea zutago emaiten dute, artisten **egongelak** osoki berritzen dituzte. Herria

Egoitzaren **egongelako** pop estiloko sofa gorrian eserita. Berria - Gaiak

Egongela apaindura gutxiko giro erakargarri batekin zeukan atondurik. Oskar Arana

Oihal ilunezko sofa astunez jantzitako **egongela** bat zeharkatu eta korridore luze batean sartu ginen. Alberto Ladron Arana

Egongela beheko solairuan eta etxeko atariaren ondoan zegoenez [...]. Aitor Arana

Egongelan bezala, beheko sua piztuta zegoen jangelan ere. Aitor Arana

Bizkitartean **egongelan** jesarri zen nobela erosi berriari ekiteko. Unai Iturriaga

Ni **egongelan** nengoen, egunkaria irakurriz, kafea hartzen. Koro Navarro

Aita eta anaia **egongelan** ETB-Kirolak ikusten. Unai Iturriaga

Arratsean, Dudleyk harro desfilatu zuen **egongelan** uniforme berriarekin. Iñaki Mendiguren

Egongelan jan zuten denek sukaldean elkarrekin prestaturiko bazkaria. Aitor Arana

Arkupe-bide errezelaz estalitako batek bakarrik isolatzen zuen logelako intimitatea **egongelan** zeudenengandik. Mirentxu Larrañaga

Ternik, Paolak eta Mariok **egongelako** sofan izaten zituzten solasaldietan. Fernando Rey

Logelara joan eta, aitak bere azken bidaiari lotu aurretik utzitako diskoak hartuta, **egongelako** gramofonoan ipini nituen. Alberto Ladron Arana

Egongelako paretako erlojuaren orratzak. Aitor Arana

Egongelako txoko batean zegoen mahai txikiago batean gosaltzea erabaki zuten. Aitor Arana

Egur pila handiegia zegoen **egongelako** tximiniaren ondoan. Aitor Arana

Carlosek, hasieran, katabuta **egongelako** mahai luzearen gainean atontzea pentsatu zuen. Bego Montorio

Gero eta urduriago ari zen jartzen, eta oso gogor zigortzen zuen gauetan **egongelako** isiltasuna urratzen zuena. Iñaki Mendiguren

Etxean, **egongelako** epeltasunean. Koro Navarro

Dionisosek hainbeste maite zuen katiluarekin hurbildu zen **egongelara** kafea hartzera. Unai Iturriaga

-Tira, itzul zaitez dagokizun **egongelara**! -esan zion zakar Filchek. Iñaki Mendiguren

Orduan auto baten argi horia sartu zen leihotik **egongelara**. Aitor Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egongela txiki bateraino eraman zuen neskameak Ruche jauna. Jon Muñoz

Ematen zuen Gryffindorreko etxe osoa artean esna zegoela eta denak beraiek noiz iritsiko zain zeudela **egongela** biribilean bilduta. Iñaki Mendiguren

Lurreko sua eta liburuak zeuden **egongela** eskerga. Xabier Olarra

Afalostean, Gryffindorrekoen **egongela** jendetsura joan ziren. Iñaki Mendiguren

Bere etxeko **egongela** erosoak hego aldera ematen. Anjel Lertxundi

Ernest Weldonen emaztea harat-honat zebilen **egongela** txukun ordenatuan, emakumezkoen ukitutxo horietako batzuk emanez. Mirentxu Larrañaga

Ni berriz Mary Ann, Joseba, Helen, Carol, Donald eta Book Clubeko beste adiskide batzuekin bildu naiz etxeko **egongelan**. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan)

Egongela aretoko sofa satinezkoan etzanda aurkitu ohi zuten, eskuei harat-honat eraginez, Zur eta lur, isilik geratu ziren guztiak, bai **egongela** barrukoak eta bai kanpokoak. Mirentxu Larrañaga

· Sudurra atzaparkatua, belarria urratua, masaila ubeldua, galtzak apurtuak, horra Max jangela- **egongelako** atea bultzatzen. Jon Muñoz

Une hartan, sukalde- **egongelatik** merodeatzen zebilen bederatzi urteko umea eseri zen Matiasen aurrean. Unai Elorriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina egongelako (3); **bere etxeko egongela** (3); **egongela bat** (7); **egongela batean** (5); **egongela edo** (3); **egongela eta** (8); **egongela handi** (3); **egongela hartan** (8); **egongela osoa** (3); **egongela zabal** (4); **egongela zeharkatu** (5); **egongela zeharkatu eta** (4); **egongelako argia** (6); **egongelako ate** (5); **egongelako atea** (8); **egongelako atearen** (3); **egongelako bazter** (4); **egongelako bazter batean** (4); **egongelako bere** (3); **egongelako besaulki** (3); **egongelako besaulkian** (5); **egongelako leiho** (5); **egongelako leihoa** (3); **egongelako leihotik** (4); **egongelako mahai** (8); **egongelako mahai gainean** (4); **egongelako sofa** (4); **egongelako sofan** (21); **egongelako sofan eseri** (7); **egongelako txoko** (4); **eta egongela** (18); **eta egongelako** (15); **eta egongelako sofan** (6); **etxeko egongela** (7); **etxeko egongelako** (3); **gryffindorrekoen egongela** (3); **gure egongela** (3); **jangela egongelako** (4); **zegoen egongelako** (3); **zen egongela** (4); **zuen egongela** (7)

biok egongelan (3); **da egongelan** (3); **egongelan aurkitu** (3); **egongelan barrena** (3); **egongelan eseri** (3); **egongelan eserita** (6); **egongelan eta** (7); **egongelan geunden** (3); **egongelan hizketan** (4); **egongelan jarri** (4); **egongelan sartu** (16); **egongelan sartu nintzen** (3); **egongelan sartzen** (3); **egongelan zegoen** (6); **egongelan zeuden** (8); **eta biok egongelan** (3); **eta egongelan** (13); **etxeko egongelan** (20); **gryffindorreko egongelan** (10); **gure egongelan** (3); **jangela egongelan** (10); **orain egongelan** (4); **sartu zen egongelan** (3); **zen egongelan** (9); **zituen egongelan** (4); **zuen egongelan** (6)

egongelara abiatu (3); **egongelara eraman** (15); **egongelara eraman zituen** (4); **egongelara eraman zuen** (5); **egongelara eta** (4); **egongelara itzuli** (20); **egongelara itzuli nintzen** (4); **egongelara itzuli zen** (3); **egongelara itzuli ziren** (3); **egongelara jaitsi** (3); **egongelara joan** (22); **egongelara joan eta** (5); **egongelara joan nintzen** (3); **egongelara joan zen** (10); **egongelara joateko** (3); **egongelara sartu** (18); **egongelara sartu eta** (8); **egongelara sartzeko** (3); **egongelara zuzendu** (3); **egongelarantz egin** (3); **egongelarantz egin zuen** (3); **egongelaren beste** (4); **egongelaren erdian** (5); **egongelatik alde** (3); **egongelatik atera** (3); **egongelatik irten** (4); **egongelatik irten eta** (3); **eta egongelara** (24); **eta egongelara itzuli** (6); **eta egongelatik** (4); **gryffindorreko egongelara** (4); **nintzen egongelara** (3); **zen egongelara** (8); **zen egongelatik** (5)

---

egongelatxo *iz* egongela txikia.

Guk galerian jartzen genion mahaia edo, eguraldia txarra bazen, haurren gela izandakoan, **egongelatxo** gisa erabiltzen baikenuen. Ander Irizar

Hamarrak **egongelatxo** garbi batera sartu eta isilik gelditu ziren, kopetilun eta kapusaiak erantzi gabe, bai eta atsoa mahaitxo baten ondoan eseri ere, haien aldamenean. Koldo Biguri

---

egongia *iz* egoitza.

Ekonomismoaren ondorio elibat ikusten dütügü heben ere, hala nola **egongia** baten edireiteko nekezia gazteentako. Herria

Bada urte bat **egongia** bat alokaidatzen düala Maulen. Herria

Denak ados dira gaineko partean apartamendu edo **egongia** egiteko. Herria

Frederichsaffen pasatzen dugu, famatua, zeppelin-ak hor baitzuen bere **egongia**. Marzel Etxehandi

Harremanetako güne zinez egokian dago, Ondarearen Etxean beitü **egongia**, herriko etxe ohian. Herria

Nire baitan **egongia** prestatzen aritu naiz egun guztian, inondik ere. Josu Zabaleta

Xiberoko Gaü Eskolaren **egongian** -Barennes anaien karrikan- Maulen. Herria

Hemen bizi zen **egongia** ttipi batean Jeanne Yvonne Lobe sortzez Lagreulet 88 urte zituen eta ehortzetak eginak izan dira joanden ortzegunean. Herria

Eta han finkatu zutelarik beren **egongia** nagusia. Elena Touyarou

---

egongiro *iz* egoteko giroa.

Egongiro egongo da, edo sutondo giro, edo ibilgiro, baina hilgiro ez, zerraldo girorik ez, mundua mundu hau denetik. Iñaki Segurola

---

egonkera *iz* egoteko era. ik **egoera**.

Bitartean, so nengoen, ez esperantzarik gabe, haren behako biziek, haren **egonkera** libroago bihurtuak, eta oroz gain ahots doinu hark, dardarizo jadanik sumagarriaz haren arimaren zirrara salatzen baitzuen, amodioari eskaintzen zioten guztiari. Jon Muñoz

---

egonki *adlag* egoten, egonik.

Iruditu zitzaidan pertsona bat bazela, hantxe, tente-tente **egonki**. Daniel Landart

Naiaran leialki **egonki** beribila. Piarres Aintziart

Baitezpadakoak direnak: xutik **egonki** den lantegi sortze edo haunditze proiektu bat ukaitea. Herria

Goresmenak etxeko guzieri eta hurbil **egonki** diren aitatxi-amatxieri. Herria

Mende bat eta erdia pasatua duen Nautique elkarteak hautsi zuen iaz “location/gérance” kontratua, eta geroztik trinketzaina beti hor **egonki** zela eta, Référé auzitegiaren aitzinera emana zuen Fredo Teileri trinketetik kanpo emateko galdea. Herria

Lan baliosa daramatela euskararen ofizialtasunaren alde, ez direla prediku borobilekin **egonki**. Herria

---

egonkor **1** *izond* bere hartan edo egoera jakin batean egoteko joera duena.

"Zeruan dagoena", hau da, betikoa eta **egonkorra**, inolako aldaketa motarik ez duena. Xabier Kintana

Emakume haien guztien helburua baitzen gizaseme **egonkor** bat izatea alboan, fakturak ordainduko zizkiena. Mirentxu Larrañaga

NBEko Segurtasun Kontseiluan Afrikak bi ordezkari **egonkor** izan ditzan bidezkoa dela iritzi dio erakundeak. Berria - Harian

Irakasle kontratatu **egonkorren** baldintzak zehazteko. Berria - Euskal Herria

Bikote **egonkor** eta monogamikoak osatzen ditugu. Luis Elberdin

Espezie monogamo gutxi batzuk kenduta -otsoak eta azeriak, adibidez-, gehienek ez dute kide batekin lotura **egonkorrik** izaten. Luis Elberdin

Lan **egonkor** eta segurua. Herria

Laguntza **egonkor** eta jarraitua behar dugu, gure eginkizuna jarraitua eta epe luzerakoa baita. Berria - Harian

Adegik hazkuntza «apala eta **egonkorra**» iragarri du Gipuzkoan. Berria - Ekonomia

Badira unibertsoaren multzoan ere banakoaren mailako iraupena duten gorputz **egonkorrak**. Xabier Kintana

Tokugawa shogungoaren mendean posible izan zen Japoniako bizitza politiko eta ekonomikoa egonkortzea [...] hura bermatzen demografiazko oinarri **egonkor** bat egon zelako. Iñaki Mendiguren

Gurean eta Europa aldean normaltzat jotzen da antizikloi **egonkorren** bat kokatzea. Pello Zabala

Maniobraren amaieran, Ilargiaren inguruko orbita **egonkorrera** helduko da zunda. Berria - Gaiak

Mahai **egonkor** bateko hiru hankak dira. Berria - Harian

Finantzazio **egonkorra** lortzeko. Berria - Euskal Herria

Prezioen maila orokorraren igoera **egonkorra** da inflazioa. Iñaki Heras

Ondasun kolektiboak dira denei zabalduta dagoen mundu mailako merkatua, nazioarteko diru-erregimen **egonkorra**, segurtasun kolektiboko sistema. Koro Navarro

Diru truke **egonkorrei** eustea eta nazioarteko dirua zabaltzea. Iñaki Heras

Faxistek Gerra Kontseilu **Egonkorra** ezarri zuten Bilbon. Edorta Jimenez

Nola funtzionatzen du dantza konpainia **egonkor** batek Euskal Herrian? Berria - Kultura

Kontuan hartu behar dugu Aristoteles bere gisa dualista zela, hau da, Platonek ez bezala, ez zituela errealitate **egonkorra** (absolutua) eta errealitate higikorra (erlatiboa) bereizten. Askoren artean

Arrazoizko argudioek, bestalde, argi erakusten dute, beraz, gizona eraginkorra dela, eta emakumea **egonkorra**. Patxi Zubizarreta

Gizarte desberdintasunak murriztu izan diren aldien ondoren, hazkunde ekonomiko jarraitua eta **egonkorra** etorri dela. Iñaki Heras

Lau hankako animalia berez da **egonkorra**, zeren haren grabitate-zentroa, jarrera eta egoera normal guztietan, hankek lurra ukitzen duten puntuek zehazturiko laukizuzenaren barruan jausten baita. Irene Aldasoro

Bere osasun egoera **egonkorra** da, eta litekeena da erietxetik laister irtetzea. Berria - Kirola

Ehiza ez da beti izaten segurua; biltzea, berriz, **egonkorragoa** eta seguruagoa da. Luis Elberdin

Zenbat eta sendoagoak izan oinarrian zituen gizarte konpromisoak, orduan eta **egonkorragoa** zen hazkunde hori. Koro Navarro

2 (adizlagunekin)

Egoera ekonomikoki **egonkor** batean, Estatu Batuen indar hegemonikoaren babespean, globalizatu egin zen munduekonomia kapitalista. Koro Navarro

Behin osatua egonez gero, nahiko **egonkorra** izan ohi da oro har, eta bere hartan jarraitzeko joera izan ohi du. Isabel Arrigain

Nik neuk bizimodu aski normal eta **egonkorra** daukat. Berria - Kultura

Batak bestearen hitza edo sentimenduak zalantzan jarrita ere, bada modua elkarren arteko bizitza eraikitzeko, nahiz eta lur oso **egonkorrean** ez izan. Ander Irizar

Bikotea pozik dago, nahiz eta egoera ez izan lar **egonkorra**. Berria - Euskal Herria

Udazkena **egonkor** samarra egokitu ohi zaigu askotan gure Euskal Herriko paraje hauetan. Pello Zabala

Machu Picchuko lurzorua 2.500 metroko altueran dago ez zela batere **egonkorra** eta lur-jausiak egoteko arriskua handia zela ohartarazi zuten japoniarrek. Berria - Gaiak

· Oso gai **egonkorrak** eta suntsitzen zailak dira, eta biometaketaren bidez gizakiaren gorputzean pilatzeko joera dute. Berria - Euskal Herria

3 (adizlagun gisa)

Etzanda, eserita edo belauniko, **egonkor** dago gorputza, baina zutikako jarrera, berez, ezegonkorra da ingeniaritzari dagokionez, grabitate-zentroa oso goian geratzen baita. Irene Aldasoro

Kubo bat lurrera botatzen denean, edozein alderen gainean geratzen dela ere, **egonkor** geratzen da, batere mugimendurik gabe. Santiago Iruretagoiena

Aire-masak ez daudela batere **egonkor** ikusi ahalko dugu. Pello Zabala

Prezioak **egonkor** mantentzeko helburuari eusteko. Berria - Ekonomia

Orobat eskaintzen du odolak kontrol-mekanismo bikain bat gorputzaren tenperatura **egonkor** mantentzeko. Irene Aldasoro

Mendebala ez dago inola ere krisian, **egonkor** eta sendo dago, beste "ostiral beltzik" ez zaigu burugaineratuko. Joxe Azurmendi

Asmoan tinko, bertutean **egonkor**, grazian iraunkor eta beti aldarte bereko. Askoren artean

Edozelan ere, ez zen gauza denbora-zuloak eratu eta luzaroan **egonkor** eusteko. Iban Zaldua

4 ***ez-egonkor*** egonkorra ez dena.

Ezinezkoa baitzen puntu ez-**egonkor** baten gainean deus ere jaso nahi izaitea. Joan Mari Irigoien

Izuturik begiratu nien izaki ez-**egonkor** haiei, ordu baten, minutu baten buruan agian, behera eroriko zirenei. Monika Etxebarria

Gas urdina eta ez-**egonkorra** da, ona atmosferako goi geruzetan eta txarra behekoetan. Berria - Gaiak

Definitzen duen antolamendua ez-**egonkorra** da, hain zuzen aginduzko lege bat ez delako. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batere egonkorra (3); **bikote egonkor** (3); **da egonkorra** (4); **egoera egonkor** (4); **egoera egonkorra** (12); **egoera egonkorra da** (4); **egoera egonkorra dela** (3); **egonkor bat** (27); **egonkor bat sortzeko** (3); **egonkor batean** (3); **egonkor bateko** (3); **egonkor baten** (9); **egonkor dago** (8); **egonkor dagoela** (3); **egonkor diren** (4); **egonkor eta** (28); **egonkor eta iraunkorra** (3); **egonkor gisa** (3); **egonkor irauten** (3); **egonkor izan** (7); **egonkor mantendu** (5); **egonkor mantentzeko** (3); **egonkorra behar** (5); **egonkorra da** (11); **egonkorra dela** (7); **egonkorra dela diote** (3); **egonkorra den** (4); **egonkorra eta** (11); **egonkorra ez** (7); **egonkorra izan** (5); **egonkorra izango** (4); **egonkorra izatea** (8); **egonkorra izaten** (3); **egonkorra lortu** (5); **egonkorra lortzea** (4); **egonkorra lortzeko** (3); **egonkorrak dira** (5); **egonkorrak diren** (6); **egonkorrak eta** (6); **egonkorrik ez** (3); **enplegu egonkorra** (8); **eta egonkor** (10); **eta egonkor bat** (3); **eta egonkorra** (20); **eta egonkorragoa** (4); **eta egonkorrak** (3); **ez da egonkorra** (3); **finantzaketa egonkorra** (4); **harreman egonkor** (3); **harreman egonkorra** (8); **hazkunde egonkorra** (4); **hazkuntza egonkorra** (3); **kide egonkor** (4); **kide egonkorra** (3); **kide egonkorrak** (4); **kide egonkorrak diren** (3); **kontseiluko kide egonkor** (4); **kontseiluko kide egonkorra** (3); **kontseiluko kide egonkorrak** (4); **osasun egoera egonkorra** (4); **prezio egonkor** (3); **sendo eta egonkor** (5); **talde egonkor** (3)

---

egonkorgailu *iz* gailu egonkortzailea.

Eta arratsean aurkitu zuten T., burezurra hegazkinaren **egonkorgailuak** zartaturik. Josu Zabaleta

Jausgailuan jauzi egiterakoan hegazkinaren **egonkorgailuak** belauna harrapatu eta hautsi zion, baina Sagonek ez zuen talka sentitu. Josu Zabaleta

---

egonkorkeria *iz* egonkortasun gaitzesgarria.

Gizartean negozioak aurrera daitezen diruak salneurria behar du; bestela, ez dira mailegu emaileak izango edo, hobeto esanda, halakoak badira ere, legeen **egonkorkeriari** mendekua hartuko diote horiek itxurazko itunen bidez, urraketaren arriskua garesti ordainduta. Andres Urrutia

---

egonkorki *adlag* era egonkorrean.

Amonio kloruroarekin aproba egitea bururatu zitzaidan, gai baita berun oxidoarekin **egonkorki** konbinatzeko, kloruro disolbaezin eta geldo bat emanik eta amoniakoa jareginik. Juan Garzia

---

egonkortasun **1** *iz* egonkorra denaren nolakotasuna.

Casasek azpimarratzen zuen Itoizko horma hartzen duen ezkerreko magalaren **egonkortasunak** "arazo larriak" dituela. Edurne Elizondo

Norbanakoak halako gizarte jakin batekoak direla sentitzeak sendotu egiten ditu, uneoro, gizarte kohesioa eta **egonkortasuna**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Orain buruhaustea konpontzea lortu dut, eta **egonkortasuna** eskuratzea, inola ere espero ez nuen moduan. Fernando Morillo

Behin aitak alde egindakoan, Tom inguruan izate hutsak **egonkortasuna** edukitzen lagundu izan zion Rory-ri bere bizitzan. Oskar Arana

Diruaren hazkundeak eskaintza potentzialaren hazkundearekin batera joan behar zuen, horixe baitzen inflazio-iragarpenak aldatzeko eta prezioen **egonkortasuna** berreskuratzeko modu bakarra. Koro Navarro

Irakasleen **egonkortasuna** izan da hasieratik gure lehentasun nagusia. Berria - Euskal Herria

Horien bitartez, irakasle kontratatuen **egonkortasuna** ziurtatzen genuen. Berria - Euskal Herria

Halako proiektuek **egonkortasuna** behar dute, baina baita aldaketak ere. Berria - Harian

Baliabideren baten zentzugabeko gainbehera, ingurumenari eginiko kalteak eta gizartearen **egonkortasunaren** gainbehera onartezinak dira gizarte iraunkor bat sortzeko garaian. Berria - Gaiak

Iraken berreraikuntzari, **egonkortasunari** eta ekonomiaren garapenari laguntza ematen jarraitu behar du Bulgariak. Berria - Mundua

Lehengaien prezioen **egonkortasunerako** mekanismoak bideratuko ahal izateko. Koro Navarro

Lehengaien mundu-merkatuen **egonkortasunerako** proiektuek berez izaten duten anbiguitatean datza auzia. Koro Navarro

Bakerik eta **egonkortasunik** gabe ezingo dugu inoiz garapenaz hitz egin, ezta pobrezia amaitzeaz ere. Berria - Gaiak

Udatik negura bitarteko zurubi luze horretako giro **egonkortasunik** gabea. Pello Zabala

Kontuan hartu dut Jaungoikoaren Hiri txit aintzatsuaren defentsa, bai gaur egungo fedegabekoen artean erromes gabiltzanon bizitza fedetsuan eta bai betiko atsedenaren **egonkortasunean**. Imanol Unzurrunzaga

Iraken jarraitu behar dugula, Irak **egonkortasunez** eta askatasunez berez jarraitzea duen arte. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egonkortasun emozionala, lan eta ekonomi mailakoa, psikologikoa, etab. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1950eko eta 1960ko hamarraldietan truke-tasek izan zuten **egonkortasun** erlatiboa finantza-historiaren oso aldi berezi bati dagokio. Koro Navarro

Egonkortasun monastikoa, bakardadea, barne antolaketa baketsu eta ordenatua. Askoren artean

Ekonomia berdintasuna areagotzeak, gizarte baten **egonkortasun** politikoa, ekonomikoa eta soziala areagotu dezake. Iñaki Heras

Herrialde batek inflazioa eta **egonkortasun** makroekonomikoa helburu hartuta aplikatzen badu diru politika, merkatuen askatasuna edo truke-tasa finkoa alde batera utzi beharko ditu. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hitzarmen hori **egonkortasun**-elementua ere izan daiteke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hezkuntza Sailak dagoen horretan betearaziko du **egonkortasun** dekretua. Berria - Harian

Egonkortasun akordioa sinatu dute Jaurlaritzak eta sindikatu nagusiek. Berria - Euskal Herria

Gaiak edo teoriak eratzen dituzte euren koherentzia, zorroztasun eta **egonkortasun** mailaren arabera. Xabier Arregi

Pertsona eseria **egonkortasun** eta atseden egoerarik hoberenean aurkitzen denez, [...]. Xabier Kintana

Espekulatzaileek (ustez, eragile arrazionalak direnak) interes-tasak apalak direnean erostean eta garestiak direnean saltzean datza espekulazioaren **egonkortasun**-eragina. Koro Navarro

Botereak, disparekotasunak eta **egonkortasun**-eza kapitalismo globalean. Iñaki Heras

Truke-tasen **egonkortasun** ezak, ziurtasun falta. Koro Navarro

Europan, truke-tasen **egonkortasun** falta integrazio ekonomikoaren eragozpen handitzat hartzen da. Koro Navarro

Gobernuek zerga politika ortodoxoak ezarri beharko dituzte, **Egonkortasun** eta Hazkunde Ituna indarrean dagoenez, defizit publikoa orekaturik eduki behar baita sortzen baitu esportatzaileengan. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duenean)

Milton Friedmanen arabera, espekulazioaren bertute **egonkortasun**-eragileak bultzatzea da diruen flotazioaren beste abantaila bat. Koro Navarro

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egitura ekonomikoak, gizarte **egonkortasunak**, pentsamoldeen inertzia, ohikuntza teknikoak. Xabier Arregi

Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu berriak ez ditu aintzat hartu hizkuntz eskakizuna ez lortzeagatik EAEko Hezkuntza sistema publikoan lan **egonkortasuna** galdu duten irakasleen eskaerak. Ideia honekin batera beste bat ere, oso hurbilekoa, kontuan hartu beharko litzateke: pertzepzio-**egonkortasuna**, alegia. Berria - Harian

Halako erakunderik ez zegoenez gero, Estatu Batuek harturiko gidaritzan zetzan huts-hutsik [...] diru-**egonkortasuna** eta nazioarteko finantza-sistemaren aurrerabidea. Koro Navarro

Estatuek edo herrialdeek beren diruei buruz truke **egonkortasuna** bermatzeko sortzen duten arau multzoari Nazioarteko Diru Sistema esaten zaio. Iñaki Heras

6 *ez-egonkortasun* ik **ezegonkortasun**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arte egonkortasun (3); **da egonkortasun** (3); **du egonkortasun** (7); **egonkortasun eta** (13); **egonkortasun eza** (6); **egonkortasun handiagoa** (3); **egonkortasun hori** (5); **egonkortasun ituna** (51); **egonkortasun ituna aldatzeko** (3); **egonkortasun ituna beteko** (4); **egonkortasun ituna betetzeko** (3); **egonkortasun ituna ez** (4); **egonkortasun ituna hausteagatik** (6); **egonkortasun ituna malgutzeko** (8); **egonkortasun itunak** (19); **egonkortasun itunaren** (18); **egonkortasun itunaren erreforma** (3); **egonkortasun politiko** (5); **egonkortasun politikoa** (6); **ere egonkortasun** (3); **eta egonkortasun** (16); **eta egonkortasun ituna** (4); **nahiz eta egonkortasun** (3); **tasen egonkortasun** (3); **truke tasen egonkortasun** (3); **zuen egonkortasun** (4)

bakea eta egonkortasuna (15); **egonkortasuna arriskuan** (4); **egonkortasuna behar** (6); **egonkortasuna behar du** (3); **egonkortasuna bermatu** (5); **egonkortasuna bermatzea** (3); **egonkortasuna bermatzeko** (16); **egonkortasuna bermatzeko akordioa** (3); **egonkortasuna bermatzen** (7); **egonkortasuna bermatzen laguntzeko** (3); **egonkortasuna berreskuratzeko** (3); **egonkortasuna da** (4); **egonkortasuna da nagusi** (3); **egonkortasuna eman** (3); **egonkortasuna ematea** (3); **egonkortasuna emateko** (5); **egonkortasuna ere** (4); **egonkortasuna eta** (33); **egonkortasuna eta bakea** (3); **egonkortasuna eta segurtasuna** (6); **egonkortasuna galdu** (12); **egonkortasuna galdu duten** (6); **egonkortasuna galduko** (3); **egonkortasuna galdutako** (6); **egonkortasuna izan** (5); **egonkortasuna kolokan** (13); **egonkortasuna kolokan jarriko** (3); **egonkortasuna kolokan jartzen** (3); **egonkortasuna lortu** (7); **egonkortasuna lortuko** (4); **egonkortasuna lortzea** (3); **egonkortasuna lortzeko** (5); **egonkortasuna mantentzeko** (4); **egonkortasuna mehatxatzen** (4); **egonkortasuna ziurtatzen** (4); **erakundeen egonkortasuna** (4); **eta egonkortasuna** (43); **eta egonkortasuna bermatzeko** (4); **eta egonkortasuna bermatzen** (3); **eta egonkortasuna lortzeko** (3); **ez lortzeagatik egonkortasuna** (3); **haren egonkortasuna** (3); **herrialdearen egonkortasuna** (4); **irakasleen egonkortasuna** (11); **irakasleen egonkortasuna bermatzeko** (4); **iraken egonkortasuna** (5); **lan egonkortasuna** (6); **lortzeagatik egonkortasuna** (3); **prezioen egonkortasuna** (16); **prezioen egonkortasuna mantentzeko** (3); **segurtasuna eta egonkortasuna** (10); **zuen egonkortasuna** (3)

egonkortasunaren alde (4); **egonkortasunaren eta** (6); **egonkortasunari buruzko** (3); **egonkortasunari eta** (3); **egonkortasunik ez** (5); **egonkortasunik eza** (3); **egonkortasunik gabe** (4); **egonkortasunik gabeko** (3); **eta egonkortasunaren** (6); **eta egonkortasunik** (5); **irakasleen egonkortasunerako** (3); **prezioen egonkortasunaren** (5)

---

egonkortu, egonkor(tu), egonkortzen **1** da/du *ad* egonkor bihurtu.

Gero egoera **egonkortu** zen, esan dezagun. Jon Alonso

«pobrezia egoera **egonkortu**» egingo dela salatu du Elkartzen-ek. Berria - Harian

Gerra frontea **egonkortu** zenean areagotu egin ziren kanporaketok Urola eta Deba bailaretan, Ondarroan... Jokin Urain

Ezker alternatiboaren espazioa **egonkortu** dugu. Berria - Euskal Herria

Industriaren hobekuntza **egonkortu** izanak bideratu du hazkuntza, Prentsaren eta telebistaren kontsumoa **egonkortu** edo jaitsi egin da toki askotan. Berria - Ekonomia

Uraren kalitatea **egonkortu** edo zertxobait hobetu egin da. Berria - Euskal Herria

Gainera, enplegua **egonkortzea** eta mugagabeko kontratazioa indartzea ahalbidetuko ditu. Berria - Ekonomia

Porlan horren bidez erraztasak **egonkortu** eta solidotu egiten dira isuri aurretik. Berria - Gaiak

Epe laburrera sumatzen diren gorabeherek, epe luzera, **egonkortzeko** joera izango dutela esan nahi du egonkortasunak. Koro Navarro

Iaz urratu bideak **egonkortzea** da asmoa. Berria - Harian

Orobat laguntzen dute giltzurrunek odolaren azidotasun maila egokia mantentzen eta odolaren presioa eta bolumena **egonkortzen**. Irene Aldasoro

Lurrinketa kontrolatuaren bidez, gorputzaren barne-tenperatura **egonkortzen** laguntzen du. Irene Aldasoro

Hori izan da lorpenetako bat: aldizkaria **egonkortzea**. Berria - Kultura

Azterketaren egileek proposatzen zuten konponbidea "zero hazkundea" zen, hau da, biztanleriaren eta industri produkzioaren hazkundea **egonkortzea**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Alvaro de Sotok nabarmendu zuen beharrezkoa dela PANen finantzak **egonkortzea**, trantsizio une kritikoan izaki. Berria - Mundua

Tokugawa shogungoaren mendean posible izan zen Japoniako bizitza politiko eta ekonomikoa **egonkortzea** -denboraldi hartan **egonkortua** egon zen neurriraino-, hura bermatzen demografiazko oinarri egonkor bat egon zelako. Iñaki Mendiguren

Lotina entrenatzaile zela (2000-2002), taldeari dezente kostatu zitzaion **egonkortzea**. Berria - Kirola

Gauza iragankorretan ahultzen bada, izaki iraunkorraren maitasunean **egonkortuko** da. Imanol Unzurrunzaga

2 (era burutua izenondo gisa)

Kapitalismo **egonkortua** kontraesana da terminoetan. Iñaki Mendiguren

Emanaldi **egonkortua**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera egonkortu (4); **egoera egonkortzeko** (4); **egonkortu dugu** (3); **egonkortu egin** (13); **egonkortu egin da** (6); **egonkortu egin dela** (4); **egonkortu egingo** (5); **egonkortu eta** (7); **egonkortu zen** (3); **egonkortuko da** (3); **egonkortuko dela** (5); **egonkortzen du** (3); **eta egonkortzeko** (4)

---

egonkortzaile *izond/iz* egonkortzen duena.

Balkanetako herrialdeetan EBk izan duen «rol **egonkortzailea** eta bakearen bermatzailea» eta monetaren batasunaren arrakasta nabarmendu zituen. Berria - Mundua

Alferrikakoak liratekeen lodigarri, **egonkortzaile**, usain-emaile eta koloratzaile ugari gehitzen bide zaizkie janariei. Edorta Agirre

Polimero honek dakarren arazo larrienetako bat degradazio termikoa da, eta, horrexegatik, normalean, **egonkortzaileekin** nahasten da PVCa. Berria - Gaiak

Idaho Falls-etik gertu (Estatu Batuak) gas erradioaktiboak ihes egin zuen erreaktore militar bateko **egonkortzaileak** nahi gabe kentzean. Berria - Gaiak

ik egonkorgailu.

---

egonkortze *iz* egonkor bihurtzea.

Azken egunotako atentatuak «Txetxeniako **egonkortze** prozesua zapuzteko asmoa duten nazioarteko indar terroristen saioak dira». Berria - Mundua

Gorputzeko atal bat mugitzea erabakitzearen ahalegin kontzienteak **egonkortze**-mekanismo landu bat jartzen du abian. Irene Aldasoro

Erabilera-eskemek, euretaz baliatzeko arauek, eurek paper bat jokatu ahal izango duten konstelazioek, euren birtualtasun estrategikoek enuntziatuentzako **egonkortze**-arlo bat osatzen dute. Xabier Arregi

Bil ta Garbik hondakinen lurperatze eta **egonkortze** eremuak egin nahi ditu. Berria - Euskal Herria

«**Egonkortze** unean gaude», adierazi du Jon Ortuzarrek, Euskalduna jauregiko zuzendariak. Berria - Kultura

---

egonleku **1** *iz* egoteko lekua.

Ai, basamortuan **egonlekua** aurkituko banu, neure herria utzi eta harengandik urruti bizitzeko! Elizen arteko biblia

Mundu berri honetan, etxe edo bizileku teknoglobal honetan bizitzeko, izakien **egonleku** berri eta aldakor honetan, gure habitata bilatu behar dugu. Askoren artean

Lugdunum erromatar goarnizio bakarraren **egonleku** zen Erromaren beraren eta Rhinen artean. Iñaki Mendiguren

Etxerako bidean, kaioen **egonleku** zen badia txiki estu batean pausatu zituzten begiak. Aritz Gorrotxategi

Borno eskualdeko mugagune hau Charles Taylorren **egonleku** zen Calabar hiritik mila bat kilometro iparraldean dago. Berria - Mundua

Leku hauetan guztietan herriari aurkezten zitzaizkion, penitentzia hots egiten zuten eta jarraian etorriko ziren anaiei **egonlekua** prestatzen zieten. Askoren artean

Sasoiko langileen eta euren familien **egonlekuen** bizi baldintzak «duinak» izatea bilatzen du planak. Berria - Ekonomia

Joanen naiz, itzuliko naiz neure **egonlekura**. Xabier Kintana

Ez daukate beste etorkirik ez **egonlekurik** gure kontzientzia hauskor, erlatibo hauxe baino. Joxe Azurmendi

Amsterdamerakoak, aldiz, itsasgizon egin ninduen, eta bulkatu ninduen, ez soilki itsasoa ibiltokitzat hartzerat, baina neure etxetzat eta **egonlekutzat** hartzerat ere. Joan Mari Irigoien

Taberna bat gauza asko baita: helmuga, **egonleku**, aspertoki edo pasabide. Pako Aristi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egonleku egokia prestatzen dio, horman ipini eta burdinazko euskarriz finkatzen du. Elizen arteko biblia

1937an haurrentzako **egonlekua** antolatu zuen han Eusko Jaurlaritzak. Jokin Urain

Haran hori guztia, zinez gozagarria, amestu ere egin daitekeen **egonlekurik** atsegingarrienetako bat da. Josu Zabaleta

Frantziskotar iturrietan, *leku* hitzak (*locus*) ez du inolako eraikin finkorik adierazten, fraideen lehen garaietako **egonleku** xume eta behin-behinekoak baizik. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egonleku zen (3); **neure egonlekura** (3)

---

egonmolde *iz* egoteko modua.

Egonmoldea eta behakoa aldatu zituen, ez ahalke doi bat gabe. Jon Muñoz

Segurtatu didatenez, arrats osoan itxura edo **egonmoldea** galdua eta nahasia izatetik urrun, bata zein bertzea egokia eta lasaia omen zituen. Jon Muñoz

Traidore hark berehala aldatu zuen doinuz eta **egonmoldez**. Jon Muñoz

---

egontasun *iz* oreka, egoera.

Ondorioz gizarteak ez du **egontasunik**, orekarik, zanbuluka dabil etengabeko krisietan. Joxe Azurmendi

Amak, bestalde, nahiago du Manexek eta aitonak elkarrizketa pribatuan jarraitzen badute, ez du esparru samurrera jauzi egin nahi, eroso dago bere **egontasun** inpartzialean. Eider Rodriguez

---

egontoki *iz* egonlekua.

Grekoz *sophía* jakinduria da, eta *oikosa* etxea, habitat, bizilekua, bizitokia, **egontokia**, egonlekua da. Askoren artean

Babestu ahal izateko **egontokirik** ez zegoenez, txara tapitu batean sartu zen. Askoren artean

Horietatik lau ekintzaile suizidek gidatzen zituzten eta Irakeko Polizia edo Guardia Nazionalaren patruilak, egoitzak eta **egontokiak** izan ziren jomuga hiriburuko Al Adamia, Al

Daudi, Al Dura eta Al Saleikh auzuneetan. Berria - Harian

Ohiturazko zuzenbidearen aurrean, lege arrazoidun horrek idatzian du euskarria, idatzia baita ororen zimentarri eta **egontokia**. Andres Urrutia

---

egonzale *izond* adierazten den bezala egoten zalea dela.

Beti etxean, inor ikusi gabe **egonzalea** dela. Hasier Etxeberria

Hozbera baitira berak bezala, berak bezala **egonzale**. Josu Zabaleta

Inhibiziorik gabeak omen, nahiz eta benetan harroputz zaratatsuak besterik ez izan [...] alferkerian **egonzale**, ezker eskua galtzen poltsikoan sartuta, bizkarra paretaren kontra, eta basoa beste eskuan, noski. Joxe Austin Arrieta

---

egosaldi *(orobat **egosialdi**)* **1** *iz* egosten den aldia.

Goizean goiz jaikitzen zen, Hongxing jatetxera joan eta lehen **egosialdiko** fideoak jan ahal izateko. Pablo Sastre

Goizean goiz jaikitzen zen, Hongxing jatetxera joan eta lehen **egosialdiko** fideoak jan ahal izateko. Pablo Sastre

2 *irud/hed* **Egosaldi** horrek darama Joxe ezin sinetsizko hildako bat izatetik itzal ustelen pasealekuetan esistitzera. Iñaki Segurola

---

egosarazi, egosaraz, egosarazten du *ad* egostera behartu.

Gero badoa semea, bere familia eta lagunekin etxera eta han **egosarazten** du aitaren burua eta gomitatu hautatuenei die ematen buru horren puxka bat jastatzeko. Aurelia Arkotxa

Destilagailu eta potoak egosteko, lasai egon zedila: bazen Andreak bere santuak **egosarazteko** eginiko labezuloa. Juan Garzia

-Arazoa konpontzera lehia gaitezen orduan, moko fin melenga horrek uhartea suaren saltsan **egosarazi** baino lehen. Itxaro Borda

---

egosbera *izond* erraz egosten dena. • *irud/hed*

Baina, azkenean, gertatu ohi da **egosberak** direla: ontzat emango dute hasieran gaitzetsi dutena, buruargia deituko diote ergelari eta ezin hobeto dantzatuko dira besteren doinuaren hotsean. Jose Morales

---

egosgaitz *(orobat **egoskaitz**)* *izond* egosten zaila. • *irud/hed*

Egia beltza, egia latza, egia gordina (**egosgaitza**), egia puta: baina, baina... egia ez al zen ba gauza ona eta ederra? Iñaki Segurola

Pelloreneko buzkantza **egoskaitz** hura errudun. Txillardegi

---

egosi, egos, egosten **1** du *ad* dirakien isurkari batean -eskuarki uretan- edukiz, zerbait, batez ere jateko gaiak, prestatu.

Gauza jakina da suak objektu batzuk urtu egiten dituela, beste batzuk gogortu, **egosi**, erre, zuritu eta belztu egiten dituela. Xabier Kintana

Ez **egosi** antxumerik amaren esnetan. Elizen arteko biblia

Ez duzue ezer gordinik edo **egosirik** jango, dena sutan errea baizik: buru, hanka eta tripaki. Elizen arteko biblia

Gero, erre zuten Pazko-bildotsa, agindua dagoen bezala, eta gaineratiko eskaintzak eltze, pertz eta lapikoetan **egosi** eta herritarren artean banatu zituzten arretaz. Elizen arteko biblia

Eltzekoa **egosi** eta ontzi batean ogi-apurrak prestatu berriak zituen, eta sorora zihoan igitariei eramatera. Elizen arteko biblia

Jaki batzuk lar erreta atera zituzten, eta beste batzuk, aldiz, erdi **egosirik**, ia gordinik. Jose Morales

Ura irakiten jarri eta pasta **egosten** ipini zuen. Unai Iturriaga

Berehala egiteko pasta **egosten** zuten, zigarroak erretzen aritzen ziren, edo bideoak nahiz komikiak ikusten. Juan Kruz Igerabide

Herdoil berde batek estaltzen zuen erdiraino; azalak, beltza eta handitua, larru **egosizkoa** zirudien. Monika Etxebarria

2 irud/hed

-Galtzerdi meheak eraman, zangoak **egosiko** zaizkin bertzenaz. Aingeru Epaltza

Eltzea sutan, esnea **egosten**. Arantxa Iturbe

Buruko eltzean neure pentsuak eta neure injenioa **egosten** jartzen nituela. Joan Mari Irigoien

Oraindik ez zait pilula **egosi** urdailean, eta borborka ari naiz. Javi Cillero

Errusiarrak ez du legarrik ahoan, ez ditu hitzak **egosten** -oilalokak arrautzak txitatzen dituen bezala-, hitzetik hortzera asmatzen ditu. Jose Morales

Senarrek, emazteak aldeztu nahirik, zaldunen denborako asmo handientsuak **egosten** zituzten batzuetan. Jose Morales

Bitartean, asmo gaiztoak **egosten** ari zen Alexandroren kontra. Elizen arteko biblia

Egitasmoa aurretik **egosten** ari bazen ere, Bergarak lehendabiziko urrats sendoak egin zituen. Berria - Harian

Konspirazioak maitaleen artean **egosten** ziren, eta beren taldekideak salatzea baino nahiago izaten zuten torturatzen uztea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lasterregi bizi garela, gehiegi hitz egiten dugula publikoan, iritziak **egosi** gabe botatzen ditugula. Ana Urkiza

Dena hagitz profesionala eta zibilizatua, hainbat ordutako itxaronaldian nire kontra **egositako** koleraz mingostuagatik ere. Aingeru Epaltza

Bere barruan Telemako nola hil **egosten** ari zen. Juan Kruz Igerabide

Diodan heriotza hori sinesteko edo irensteko, heriotza **egosi** egin behar da lehenbizi, zeren heriotza gordina ez baita inongo ahotan sartzen. Iñaki Segurola

Sukar gaixto batek **egosten** ninduen. Marzel Etxehandi

3 (era burutua izenondo gisa)

Belar **egosiak** saltzen zituen; atzeko aldean, hainbat azpilek dir-dir egiten zuten. Karlos Zabala

Segidan, porru **egosiari** ura kontuz-kontuz kendu. Patxi Zubizarreta

Bien artean azpil bat kokatu, eta baba **egosiak**, tipula gordinak eta pepinoak ozpinetan ipintzen zituzten. Patxi Zubizarreta

Aingirak, patata **egosiekin**. Herria

Arrainik ez, beraz; haragi **egosia** tomate eta piperrekin. Inazio Mujika Iraola

Ganba pila handi arrosak dauzkate haiek, eta otarrain **egosiak**, loturik, isatsa bildua, saski gorrietan. Karlos Zabala

Emakumea erdi etzanda zegoen, gozo-gozo, arrautza **egosi** bat espinaka-platerkada batean bezala. Lopez de Arana

Guneak metro asko ditu, bete egin behar dira, eta iruditzen zait gurea dela une honetan proiekturik **egosiena**. Berria - Kultura

4 (adizlagunekin)

Eta tripaki karratuak, paderaren hondarrean eztiro-eztiro **egosten**. Karlos Zabala

Zopa geldiro **egosten** ari zen eltzean jarri zuten arrautza, eta eskualdean esaten zena kontatzen hasi zen erementaria. Josu Zabaleta

Orduan, gehiago barneratu zen ohe estalkiaren azpian, non emeki-emeki **egosten** baitzen, bainuontzi bero batean bezala. Karlos Zabala

Zaila da guztia noiz hasi zen zehaztea, poliki-poliki **egosten** joan den eltzea izan baita. Berria - Kirola

5 (hitz elkartuetan)

Gaineko arrautza-**egosi** xerra eta maionesa paperezko zapi batekin nola kentzen nituen begiratu zenuen, eta nola bota nituen lurrera. Eider Rodriguez

6 buztina edo kidekoak oso tenperatura altuan tratatu nolakotasun jakin bat har dezan.

Karea **egosteko** ere, karobia sutzerakoan, otea nahi izaten omen zuten garai bateko aitona zaharrek. Patziku Perurena

Bi molde behar dira ezkilaren egiteko, edo biak buztin **egosizkoak**, edo bata buztinezkoa eta bestea burdinezkoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Andrea jainkozalea zen, eta laster bete du uhartea zurezko eta buztin **egosizko** santuz. Juan Garzia

• **7** *iz* gauza egosia. (era burutua izen gisa)

Urri eta azaroan gaztaina eta ezkurra ausarki jan zituen baina, orain, **egositik** ere behar! Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrautza egosi (4); **arrautza egosiak** (3); **baitan egosten** (3); **bat egosten** (3); **egosi antxumerik** (3); **egosi bat** (3); **egosi behar** (3); **egosi egiten** (3); **egosi eta** (14); **egosi gabe** (4); **egosi pixka** (3); **egosi zuen** (3); **egosiak eta** (3); **egosiaren usaina** (3); **egosiko dute** (3); **egosteko eta** (3); **egosten ari** (27); **egosten ari den** (5); **egosten ari zela** (3); **egosten ari zen** (11); **egosten dituzte** (3); **egosten jarri** (4); **egosten utzi** (3); **eta egosi** (6); **eta egosten** (7); **ez egosi antxumerik** (3); **janari egosiak** (3); **patata egosiak** (3); **zer egosten** (3)

---

egosialdi ik **egosaldi**.

---

egoskaitz ik **egosgaitz**.

---

egoskari *iz* barazkia, eskuarki lekaduna; lekadunen alea. ik **lekale**.

Ba **egoskariak** jan nahi nituzke nik: babarrunak, dilistak. Josu Zabaleta

Dagoeneko dauzkagun ehun janari poteez gainera, beste 135 kilo **egoskari** erosi ditugu. Josu Zabaleta

Astean arroz platerkadatxo batek ez digu askorik konponduko, baditugu **egoskariak** jateko. Josu Zabaleta

Horrela bada, zuretzat traba ez bada behintzat, bi otorduetan **egoskari**-plater bana jartzea nahi nuke. Josu Zabaleta

Estalkia kendu berri zaion eltze **egoskaria** zirudien, berriz, lurrak. Anjel Lertxundi

Egoskari zakuak armairu-atearen atzean dagoen korridorean zeuden gakoetatik eskegita. Josu Zabaleta

---

egoskera *iz* egostea.

Mendaro edo mirra esentzia gozoa edo sudurrentzat nektarra den akara lurrina egitera zoazenean, lehenen behar duzuna ahal den oliba oliorik usaingabeena, sudurrei inolako jariorik igorriko ez diena, den bezala, **egoskeran** usain nahastuak lorrin eta honda ez ditzan. Xabier Amuriza

---

egosketa *iz* egostea.

Egosketak zerion usain satsu tristea aditu zuen berehala. Juan Garzia

Zugazagoitia irakasleak **egosketan** sor daitezkeen gai kutsakor arriskutsuez ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Egosketaren amaiera aldera, bi tipula xerra sartzeko oliotan. Juan Garzia

Egosketaren tenperatura keei kasu eginez kalkulatzen zen. Juan Garzia

Egosketen lurrinak eta usain sinesgaitzenak sortzen ziren han, harik eta kirats bat bakarra, nabarmena, deskriba ezina eta trinkoa osatzen zen arte. Anjel Lertxundi

Ez dakit ustekabe hark zer **egosketa** mota eragin zuen nire barruan, baina kontua da bizitza osoa pasatu zitzaidala burutik. Bernardo Atxaga

---

egoski *iz* jaki egosia.

Zerbitzari, ekarri mesedez New England erako **egoski** bat, sagar-tarta puska bat eta kafea. Lopez de Arana

Egoskia bere doi gradura iritsi zela erabaki zuenean, ontzia erretiratu zuen sutatik, eta, kurrika baten laguntzaz, ore trinkotua atera bertatik. Anjel Lertxundi

---

egoskin *iz* infusioa.

Zer lortuko nuke anbulu zurien sustrai-hautsa asentsio-belarraren **egoskinari** erantsiko banio? Iñaki Mendiguren

Zeren sustrai-hautsa eta zeren **egoskinari**.Tamestatak eta beltxarga-lumatxen **egoskinak** banatzen nituen. Iñaki Mendiguren

---

egoskor **1** *izond* amore ematen ez duena, setatsua.

Nekez ulertuko zuen ama bezalako emakume euskaldun tradizional **egoskor** batek antzeko erabakirik. Joan Mari Irigoien

Beti izan naiz pertsona saiatua, **egoskorra**, ausarta. Karlos Linazasoro

Inoiz etxeratzeko asmorik ez duten edanzale **egoskorren** moduan. Joseba Sarrionandia

Heroi **egoskorren** xarma. Berria - Harian

Pio Baroja ia beti korrontearen aurka ibili zen «intelektual indibidualista, **egoskor**, aldakor eta askotan dezepzionagarria» izan zen, baina idazle emankor, iradokatzaile eta handia ere bai. Berria - Kultura

Alferrik zela ikusita, bi mutikoentzat eskatu zuten gero, eta, Klemente **egoskorrak** hori ere emango ez zuela garbi zirudienez, [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Batzu-batzuk, **egoskorrenek**, haserretuenek, ez zieten kasurik egin matxinatuen mehatxuei. Karlos Linazasoro

Haiek zartadak mando **egoskorrei**! Bernardo Atxaga

Herri **egoskor** hori zuzentzea izango da, hain zuzen, Moisesen lana. Jose Antonio Mujika

Zapalduriko herrialde **egoskor** batean gertatzen da ekintza. Juan Garzia

Uste du **egoskor** hutsa zarela eta hura adibide ezin hobea da. Lutxo Egia

Jaitsi zaitez hortik esango zion, helduek umeei errieta egiteko duten ohitura **egoskor** horrekin. Joseba Sarrionandia

Haren izaera temati eta **egoskorrari** leporatzen zioten gehiago hitz egin nahi eza, hitz egiten jakin ezari edota hitz egiteko ezintasunari berari baino. Felipe Juaristi

Arreta **egoskor** batez aritu nintzen hura hausnartzen. Koro Navarro

Gauhararen aita ergel hutsa da, eta **egoskorra**, eta ezezkoa emanez gero, akabo gure asmoa. Patxi Zubizarreta

Batzuetan **egoskor** eta burugogorra da, baina apetatsu eta zalantzatia. Xabier Olarra

Han jarraituko du zure herriak bere erresistentzia **egoskorra**. Joseba Sarrionandia

Gaurko gazteak horrelakoxeak gara, errebeldeak eta **egoskorrak**. Bernardo Atxaga

Halako batean bazirudik erabaki horiek ez ditugula guk hartzen, bizitza esaten zaion gauza horrek baino, halabeharra oso **egoskorra** izaten duk-eta. Mikel Hernandez Abaitua

Ez ba, **egoskor** horrek, kontu hura guztia asmatu behar. Antton Olano

Berak, ordea, isiltasun **egoskor** eta erabatekoa hautatu zuen, eta ez zioten txintik ere atera. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina badut nik **egoskorretik** ataltxo bat eta... moda guztien aurka... hor noa! J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (adizlagun gisa)

Amor eman gabe, **egoskor**, bakoitzak geureari eusten genion. Andoni Egaña

Arratsaldean primeran portatu da puzzleekin-eta jolasten, baina oheratzeko orduan **egoskor** jarri da, eta ipurdiko pare bat eman behar izan diot. Patxi Iturritegi

Sobrino **egoskor** jarri zen, eta ez zion puntu hori argitu kronopoliziari, ezta agenteek hipnosia erabili zutenean ere. Iban Zaldua

Gero eta makurrago zebilen arren, **egoskor** jarraitzen zuen sorbaldei atzera egiteko ahaleginean. Koro Navarro

Gutuna idatzi eta handik lau egunera hil zen osaba, martxoaren 25ean -jarraitu zuen Teresak **egoskor**-. "Iruainen ez naiz bakarrik egongo", ekin nion **egoskor**. Bernardo Atxaga

Berak hain **egoskor** bilatu duen gure arteko buruz buruko hau espetxeari zor diogula adierazteko. Koldo Izagirre

Baina zure bihotzak legeei entzungor / eginez segituko du beti **egoskor**. algaretean ibili ginen une batez, **egoskor** Engels bere ariketan eta ni ahalegin hura iraindu nahi ezik mutu. Xabier Olarra

Errealitatea, hala ere, **egoskor** nagusitzen da. Berria - Euskal Herria

Hala ere, **egoskorretan egoskor**, izugarrizko merkatua ikusten diogu guk ogia sarearen bitartez banatze horri eta aurrera egitea erabaki dugu, Patri. Hasier Etxeberria

Disekatua zegoela ematen zuen, lokomotoraren faroak itsutua nonbait, geldi eta **egoskor**. Joxe Austin Arrieta

3 (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Ez nuen ezagutzen zure burubidearen **egoskorra**; zure maitasunaren sakona deituko zenioke zuk. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina egoskorra (4); **baino egoskorragoa** (4); **egoskor ari** (3); **egoskor bilatu** (4); **egoskor bilatu duen** (3); **egoskor eta** (5); **egoskor jarri** (4); **egoskor saiatu** (4); **egoskorra da** (8); **egoskorra dela** (3); **egoskorra zela** (3); **egoskorra zen** (5); **eta egoskor** (4); **eta egoskorra** (5); **oso egoskorra** (8)

---

egoskorkeria **1** *iz* tema, seta.

Bai, susmoa ere baneukan eta esperientzia luzearen ostean zinez baieztatzera ausartuko nintzateke, arriskua bera, seta hura, **egoskorkeria** ez esatearren, ekintzaren zati zela. Urtzi Urrutikoetxea

Ezin ihes egin neskaren setari, nobia formalarena egiteko **egoskorkeria** hari. Iñaki Iñurrieta

Zertara zetorrek ez hitz egiteko **egoskorkeria** hori? Rafa Egiguren

Azken batean, bere **egoskorkeria** eta ausarkeriagatik dago enpresa dagoen bezala. Lopez de Arana

Ez zion tankerarik hartzen haren **egoskorkeriari**. Bernardo Atxaga

Erresuma Batuaren **egoskorkeriari** egotzi zion porrotaren erantzukizuna. Berria - Harian

Segi zezala hark bere **egoskorkerian** tematuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Besteak, bitartean, astapotro ez nolanahikoak, beren **egoskorkerian** tinkoagotuak, doi-doi kezkatzen hasiak zirela heziketa eta modu onen tirriarekin. Jon Alonso

Bizitza arruntean gogor eta **egoskorkeriaz** aritu direnei ez diegu eskaintzen eskaini behar geniekeen esker ona. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina zer besterik egin nezakeen zure **egoskorkeriaren** aurrean? Patxi Zubizarreta

Gizon honen **egoskorkeriak**, bere familiaren etxea harrika defendatzera bultzatu zuen. Berria - Mundua

Noranahi abiatu, zekenkeria jazartzen zaio gizaki honi, lizunkeriak suntsitzen du, handikeriak txunditzen du, harropuzkeriak haizez puzten du, inbidiak torturatzen du, utzikeriak lozorrotzen du, **egoskorkeriak** zirikatzen du, laidoak sumintzen du eta, azkenik, libidoaren nagusitzak berekin dakartzan beste hainbat gaitz sufritzen ditu. Imanol Unzurrunzaga

Hormetako kartelak mudatu egiten dira oinarrizko koloreak baino nabarmentzen ez direla -koatrikromiaren erruz dela diote adituek, nik uste dut koloreen **egoskorkeria** baino ez dela-. Unai Iturriaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egoskorkeria amorragarriaz tematu nintzen. Eduardo Matauko

Bazuen, bere birjina itxura ameslari haren azpian, halako **egoskorkeria** mutu bat, bere buruaren jabe izateko gogo bat, aparte bizitzera bultzatzen zuena. Karlos Zabala

Beren biziari eutsi eta aurrera egiteko kemena **egoskorkeria** hutsez lortu omen zuten, ez beste, **egoskorkeria** hutsez... J.M. Olaizola "Txiliku"

Kopetan noizbehinka agertzen zitzaizkion bekozko-zimurrek bakarrik salatzen zuten neskatoaren barreneko **egoskorkeria** eta kasketarako joera. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hantxe zegoen Ramsay andrea, Lilyren farrea zerk eragin zuen igarri gabe, artean kontrolatzen, baina ordurako **egoskorkeria** zantzu guztiak deseginda, eta horren ordez argitasun bat zegoen. Anton Garikano

Txalupak aurrera egin ahala, aitaren haserrea iparrorratzaren muturrei buruz, Jamesen **egoskorkeria** paktuari buruz, eta bere ezinegona ere, denak joan zirela irristan. Anton Garikano

Dudarik gabe **egoskorkeria** mota landuena, ezagutzen nituenetan eraginkorrena eta, batez ere, niretzat probetxagarriena. Urtzi Urrutikoetxea

Gora begiratu eta hantxe zegoen Ramsay andrea, Lilyren farrea zerk eragin zuen igarri gabe, artean kontrolatzen, baina ordurako **egoskorkeria** zantzu guztiak deseginda. Anton Garikano

---

egoskorki *adlag* egoskorkeriaz.

Nahiago izan zen **egoskorki** giza adimen sendora jotzea [...] froga dogmatiko berriak saiatzea baino. Ibon Uribarri

Hau konponketarik onartzen ez duen arazoa denez, alegia, **egoskorki** onartzen dugun objektu erreal bati dagokion arazoa denez. Ibon Uribarri

Irmotasun dogmatikoa onartzeko eta **egoskorki** baieztapen jakin batzuen alde egiteko tentaldira. Ibon Uribarri

Oraina hortxe dago sor eta gor, **egoskorki**. Iban Zaldua

---

egoskorraldi *iz* egoskorkeria aldia.

Jexuxen bizitzak sostengu gogorra behar baitzuen: **egoskorraldiak** baretu eta bere nahiak aseko zituen emakumea. Xabier Etxabe

---

egoskortasun **1** *iz* egoskorra denaren nolakotasuna.

Bere iritziengatik, bere jarreragatik, bere erabakiagatik, bere **egoskortasunagatik** ... mila eta bi arrazoi leuzkake Garzonek Ugalde preso eramateko. Hasier Etxeberria

Gero, hisiak bultzatuta, kuskuan gordetako tximeleta ahularen **egoskortasunarekin**, barnean eta ezkutuan zeukan edertasun guztia koloreztatzen joan zen hurrengo urteetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bedeinkatua izan bedi landareen **egoskortasuna**. Bernardo Atxaga

Iruditzen zaizu zeu sartzen zarela paisajearen intimitatean, paisaje horrek behin eta berriro urrutiratzeko duen **egoskortasuna** gainditzuz. Pako Aristi

Haienganaino jaitsiko zarete eta ez da erraza izango haitzean behera egitea, amildegia sarritan bertikala izango delako itsasoraino, han behean olatuek arrokei harrokeriaz eta **egoskortasunez** erasotzen dieten artean. Joseba Sarrionandia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zaharren ezaugarrri diren soraiotasun eta indar horrek, edozein helbururantz zuzendutako **egoskortasun** ulertezin horrek. Xabier Olarra

Sarri, norbaitek bere esakuneak **egoskortasun** seguru eta bihurtezinarekin esaten ditu, itxuraz errakuntzaren ardura oro baztertuz. Ibon Uribarri

---

egoskortu, egoskor(tu), egoskortzen da/du *ad* egoskor bihurtu.

Egoskortu zen orduan Voynich jauna, eta esan zuen diru gutxiagoan ez ziola inori salduko. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Ez dut ulertzen zergatik **egoskortzen** zaren zure jarreran. Koldo Izagirre

Zergatik **egoskortzen** gara hainbat errealitate fikzio balira bezala hartzen? Berria - Euskal Herria

Bada, gure Herbert zeharo **egoskortu** zen, baietz, egon behar zuela han nonbait jeepen bat ganoraz bilatuz gero, oilo-herrixka hartan, alajaina, txabolaren baten atzean edo, kalabaza, banana eta arto-basarte hartan. Joxe Austin Arrieta

Are gehiago, 1809. urtetik cherokee hizkuntza idazteko era asmatu nahiz **egoskortuta** zebilen Sequoyah. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez zaik **egoskortzea** komeni. Rafa Egiguren

Kontu hura argi utzi behar zuela **egoskortu** zen, eta lehengo lepotik jarraitu zuen. Anton Garikano

Ez ote zegoen unaturik galdetu eta, haserreturik, ea tabernaz taberna ez ote nintzen nekatzen **egoskortzen** zitzaidan bera. Xabier Montoia

-Zergatik joango naiz, gaixo ez banago? -erantzun zion aitak, berean **egoskortuta**. Joan Mari Irigoien

---

egosle *izond* egosten duena.

Gauza jakina da suak objektu batzuk urtu egiten dituela, beste batzuk gogortu, egosi, erre, zuritu eta belztu egiten dituela, eta norbaitek suari "zuritzaile", "beltzaile", "erretzaile", **"egosle"**, "gogortzaile" eta "urtzaile" delako atributuak egotz baliezazkio, egia lerrake. Xabier Kintana

---

egosleku *iz* egosteko lekua. • *irud/hed*

Frankismoaren azken urteetan, gure auzoa ideologien eltze eta **egosleku** bihurtu zen; inondik ere, inguruetako herri zein auzoetako bazter-nahasleei txoko egokia iruditu zitzaien gurea, non zer suma ibiltzeko. Juan Kruz Igerabide

---

egospen *iz* egostea.

Ostatu arrunt edo apalekoei, lehengaien kostuak merkatzeko eta **egospenak** soiltzeko bideak aurrean izango dituelako; kontsumitzaileari, zer esanik ez, era horretan aukera biderkatua ikusiko duelako. Edorta Agirre

Fusio-sukaldaritza: lehengaiez (beren aho-ukitu, usain, zapore, kolore eta guzti), **egospenez** (tenperatura, denbora, aurre-prestatze, etab.), aurkezpenez (geroz eta "ekialdetarragoak", dirudienez. Edorta Agirre

60º C-ren jiran elementu ugari desegiten edo aldatzen dira, osasunaren kaltean, nonbait; **egospenak** tenperatura biziegietan egin gabe luzatu egiten badira, ondorio mesedegarriagoak lor daitezke. Edorta Agirre

Lehengai berriak (alga, onddo eta antzekoez osaturiko jakiak), banatze modu berriak (etxez etxeko dendak, Internet bidezkoak), orain arte oso ezagun ez ziren **egospen** berriak (indukzioa, gas likidoen erabilera), etab. Edorta Agirre

---

egoste *iz* dirakien isurkari batean edukiz, zerbait prestatu.

Mutilak inondik inora ere ez zion utziko sutegiaren gainean loditzen ari ziren ore gantzatsu haiei eragiteari; eta, neskak, bitartean, **egoste** puntua egokia ote zen eztabaidatzen zuen, batere txantxarik gabe. Karlos Zabala

· Sortzen diren galderak ere bai: informazio aldetik, beharrezkoa da biktima bere odoletan **egoste** hori? Iñigo Aranbarri

---

egotaldi *(ETCn **51** agerraldi; cf **egonaldi** **6.607** agerraldi) iz* egonaldia.

Leku batean bizitzeak esan nahi du hor luzaro egotea; horrela, animaliak bere **egotaldia** herri-basoan zein jabe bakarrarenean, luzatzen duenean, hartaz esan ohi da "bertan bizi dela", nahiz eta, segur aski, ibilian ari. pasaportea neuk gordeko dut, **egotaldia** ordaintzen duzun arte! Xabier Kintana

Oraindik nahiko luzatu da gure **egotaldia** te-etxe jendetsuan, bigarren pipa erretzen amaitu arte. Jon Arretxe

Pentsatu dut, eta ez dit ardura izan, atzo penaz oheratu bainintzen, nolabait sumatuz hiri honek eta, batez ere, Peterrek, egun gehiagoko **egotaldia** merezi zutela. Jon Arretxe

---

egotaldixo *iz* egonalditxoa.

Egun asko neraman ganorazko bizilekurik gabe, eta neska haien etxean, agian, **egotalditxo** goxoa egin nezakeela pentsatu nuen. Jon Arretxe

---

egotaro *iz* egonaldia.

Danek aholkatu zigun bezala, ilunabarrean Empire State Buildingera igo naiz: ikusmira eta **egotaroa** zoragarriak ziren. Patxi Zubizarreta

---

egoteke *adlag* egon gabe.

Sorkuntza bertsolariei dagokie, eta sortzailearen askatasunetik garatu behar dute, erakunde-interesei lotuta **egoteke**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Parisko erabakien zain **egoteke**, behartuta gaude argazkiez mintzatzera. Iñigo Aranbarri

egotismo *iz* nork bere buruaz hitz egiteko irrika.

Nitasunaren literatura: autobiografia, egunerokoak, oroitzapenak, aitorkizunak... **egotismoaren** gela itxi eta itsua, lehendik ere bisitatu izan dudana, eta horrexek ematen dit beldurra. Xabier Mendiguren Elizegi

Anti-intelektualismoa, manikeismoa, mistizismoa, pesimismoa, anarkismoa, **egotismoa** liseritu ditu: etapak baizik ez dira, haien justifikazioa humanismoan baino kausitzen ez duten gogoeta osatugabeak. Monika Etxebarria

Gorroto zion imintzio sutsu eta handios haiengatik; buru aparta harengatik; etengabeko eskakizun eta **egotismo** harengatik (hantxe zegoen zutik, aintzakotzat har zezaten agintzen). Anton Garikano

---

egotista *iz* egotismoari dagokiona.

Egotista [...]: gustu txarreko pertsona, arreta handiagoa jartzen diona bere buruari niri baino. Xabier Olarra

Sentitu egin zuen lore arroseko fruta-arbola baten antzera ama zutitzen, hostoak eta adarrak kulunka, bitartean latoi puska hura, aitaren zimitarra agorra, gizon **egotista** hura zulatu eta joka ari zelarik, ulerpen eske. Anton Garikano

Egotista horietako bati Agamemnon Melanchton Petersek lerro hauek bidali zizkion: [...]. Xabier Olarra

Atezainak egotista sonatua ikusiz, esan zion ezpainekin eginez barre murritz: [...]. Xabier Olarra

---

egotu ik **egon**.

---

egotzarazi, egotzaraz, egotzarazten du *ad* egoztera behartu.

Esan daiteke pertzepzio-iraunkortasunaren nozioa ere, ikusmenezko munduaz jabetzen garen moduaren oinarrian dagoena, eta objektuei eta espazio-kualitate iraunkorrak **egotzarazten** diguna, badagoela irudiak atzemateko dugun moduaren oinarrian. Josu Zabaleta

Eta, nola afaria ohiz kanpokoa izanen den, [...] ohiz kanpoko zerbait egin behar diagu guk ere... gonbidatuei saria lehenbailehen **egotzaraziz**, konparazione. Joan Mari Irigoien

---

egotzi, egotz, egozten du *ad* **1** norberarengandik halako distantziara bidali; igorri; kanporatu. ik **bota**[1].

Kapitainak bere piparekin segitzen zuen kea irensten, baita kea **egozten** eta hitz egiten ere, biak baterat. Joan Mari Irigoien

Bere herriko jende xumea babestu zuen, legea betearazi, lege-hausle eta gaiztoak **egotzi**. Elizen arteko biblia

Egotzi egin zuen alaben irakaslea ere, ez baitzen guztiz makulagabe gertatu Aleksandra Stepanovnaren bahiketaren aferan. Jose Morales

Gure aitak goizean baraurik eta jaiki berritan **egozten** zituen birao segidak izan ziren nik ikasitako otoitz bakarrak. Pello Lizarralde

Nirekin ninderaman, nirekin joan nahi zukeen arima, erdiraturik, odoldurik, eta ez nuen aurkitzen non **egotzi**. Imanol Unzurrunzaga

Makilkadaz gogoratzean birao bat **egotzi** du ahopeka. Pello Lizarralde

Joan den astean metadona positiboa emateagatik Tourretik kanporatua izan ostean, bere taldeak Christophe Brandt **egotzi** du. Berria - Kirola

Mahaia jo, eta begiratu zorrotza **egotzi** zien bi haurrei, aurrez aurre eseririk baitzeuzkan. Jose Morales

Ondora ailegatzen lehenak zangotik atxiki nahi izan ninduen, tira eginda ni lurrera **egozteko**. Aingeru Epaltza

Kontrako norabidean zetorren bertze auto baten kontra **egotzi** zuen. Berria - Euskal Herria

2 (nondik adieraziz)

Norabidea aldatu eta lehen joaten galarazi zitzaion tokira joan zenean, paradisutik **egotzia** izan zen. Xabier Kintana

Bezperan, gauean, Citadelle kafe etxetik **egotzi** zuten. Patxi Zubizarreta

Anaiaren batek, deabruak zirikaturik, sexu-harremanik izan baleza, ken bekio abitua, bere bekatu dorpeaz galdua baitu hura janzteko eskubidea; erantz beza erabat, eta gure Elkartetik **egotzia** izan bedi zeharo. Askoren artean

1999an Girotik **egotzi** egin zuten, sailkapenburu zelarik eta Italiako itzulia irabaztear zela, hematokriko tasa altuegia eman zuelako. Berria - Kirola

Hala egiten ez duena taldetik **egotzia** izango da. Harkaitz Cano

Zer nahi duzue, ni hemendik **egoztea**, ala? Mirentxu Larrañaga

Hargatik zebilen Xalbador handik bulkaka **egotzi** nahian. Joan Mari Irigoien

Judasek eta beronen anaiek hil egin dituzte zure aldeko guztiak eta gu geure herrialdetik **egotzi**. Elizen arteko biblia

Gogorarazi beharra dago frantsesak gure herrialdetik **egotzi** eta gutxira jazo zela hori guztia. Jose Morales

Tronutik **egotzitako** tirano, nire esklabo bihurtu horiek. Jon Muñoz

Lanetik **egotzi** zuen emakume ergel hura, eta administratzaile azkarrago bat hautatu zuen haren ordez. Jose Morales

Egotzia izanak -paradisutik, amaren epeletik- egiten ei du gizakia gizaki. Markos Zapiain

• **3** dio *ad* leporatu, aplikatu; aurpegira bota.

Egun batez, nazkak eraginik, senarrari aurpegira **egotzi** zion handik aurrera ez zuela berarekin sexu harremanik izango. Gotzon Garate

Errurik gehien neure buruari **egozten** diot. Oskar Arana

Aita, egin otoitz nire alde Jainkoaren Semeari, errurik **egotz** ez diezadan. Askoren artean

Ez diot ezeren errurik **egozten**. Oskar Arana

Tira, ez **egotzi** errua niri, Cruger jauna. Mirentxu Larrañaga

Hasieran, platera prestatzen zion langileari **egotzi** zion hutsegitea. Patxi Zubizarreta

Hainbat enpresa txiki itxi zituen, ETAren «finantza-sarea» osatzea **egotzita**. Berria - Harian

Zuzentzaileari **egotzi** zaizkion hutsegiteak ez direla bereak. Jon Alonso

Batek baino gehiagok ninfomania **egozten** zion Adelari, baina ziur nago ez zuela halakorik. Juan Kruz Igerabide

Inork ez dit **egotziko** saiatu ez nintzenik desastrea galaraztera. Aingeru Epaltza

Elizgizonei **egozten** zieten beren idoloak suntsitu izana. Iñaki Iñurrieta

Ez diot sekula galdetu Sedanori zertan datzan errudun konplexua, baina ziur naiz nire neurosi obsesiboari **egotziko** liokeela. Ramon Saizarbitoria

Ez dut nire sexuari **egozten** zaion harrokeriarik. Jon Muñoz

Kritika liberalak okerreko ideia bat **egotzi** zien merkantilistei. Koro Navarro

San Frantziskori **egotzitako** idazkien lehen argitalpen osoa 1623koa da. Askoren artean

Batasun hau Estetikan sentimenari soilik **egotzi** nion, adigai ororen aurretik doala oharrarazteko. Ibon Uribarri

Horrela bada, 'mintzatu' aditza ahotsari **egotzi** zaionez, era berean hemen ere 'oihu egin', 'hots egin' ahotsari **egotzi** zaio. Xabier Kintana

Eraldaketa hura iraultza bati **egotzi** behar diogula. Ibon Uribarri

Nekatuta esnatu nintzen Tetrako besaulkian, izerditan blai, baina ajeari **egotzi** nion dena. Iban Zaldua

Iad Alaui lehen ministroari «kontraesankorra» izatea **egotzi** zion. Berria - Mundua

Hondamendiaren inguruko informazioa ezkutatu izana **egotzi** dio Louzanek Espainiako Gobernuari. Berria - Gaiak

Pentsioekin alarmistegia izatea **egotzi** diote eragileek Jaurlaritzari. Berria - Ekonomia

Batasun hau Estetikan sentimenari soilik **egotzi** nion, adigai ororen aurretik doala oharrarazteko. Ibon Uribarri

Kristau tradizioan Joan ebanjelariari **egozten** zaio arranoaren sinboloa. Askoren artean

Apala zuen begiratua, urduria ibilera, eta jendeak mutilzahar gelditu izanari **egozten** bazion ere bere uzkurtasuna. Anjel Lertxundi

Jarduerarik eza ezin zitzaion **egotzi** sorburuko gaixotasunari, erretinitisari, aspaldidanik gelditua baitzen gaitz hori. Xabier Olarra

Horregatik, arinkeria da emakumeei ahul fama **egoztea**. Juan Martin Elexpuru

«Definizio falta» **egotzi** dio Ibarbiak Kultura Garaikidearen Nazioarteko Guneari. Berria - Kultura

Errespetuari **egotzi** nion isiltasuna. Anjel Lertxundi

Zer dakigu heterofasiari **egotz** dakiokeen izugarrikeriaz, zer dakigu guk. Karlos Linazasoro

Barrokismoa eta klasikotasuna, biak batera **egozten** zaizkio Borgesi. Juan Garzia

Monarkia berriro aginpidean jarri eta bera errege izateko asmotan zebilela **egotzirik** hil zuten 1793ko azaroan. Jon Muñoz

Komunikazio-teoriako hizkuntz eredu oinarrizko hau osatzeko, probabilitate bat **egozten** diogu egoeratik egoerarako aldaketa bakoitzari. Itziar Laka

Migel Mailu gazteluzainaren heriotza **egotzita**, Garrüzen berean hertsatu zieten lepoa. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aritzea egotzi (33); **aritzea egotzi dio** (7); **aritzea egotzi zien** (7); **aritzea egotzi zion** (14); **aurka egitea egotzi** (5); **baliatzea egotzi** (9); **baliatzea egotzi zien** (5); **bat egotzi** (19); **bat egotzi zuen** (4); **bati egotzi** (21); **baztertzea egotzi** (11); **baztertzea egotzi zion** (4); **berari egotzi** (8); **betetzea egotzi** (14); **betetzea egotzi dio** (5); **bilatzea egotzi** (5); **bilatzea egotzi zion** (4); **biltzea egotzi** (6); **botatzea egotzi** (5); **bultzatzea egotzi** (4); **defendatzea egotzi** (5); **dela egotzi** (4); **delitu egotzi** (4); **delitua egotzi** (12); **desitxuratzea egotzi** (5); **duela egotzi** (6); **eajri egotzi** (6); **eajri egotzi zion** (4); **egin izana egotzi** (17); **egitea egotzi** (99); **egitea egotzi die** (11); **egitea egotzi dio** (20); **egitea egotzi diote** (11); **egitea egotzi zien** (19); **egitea egotzi zion** (25); **egitea egotzi zioten** (6); **egoerari egotzi** (4); **egotea egotzi** (10); **ezin egotz** (6)

egotzi ahal (12); **egotzi baitzuen** (8); **egotzi behar** (47); **egotzi behar zaie** (4); **egotzi behar zaio** (12); **egotzi behar zaiola** (4); **egotzi dakioke** (6); **egotzi die** (112); **egotzi die fiskalak** (4); **egotzi diete** (61); **egotzi dio** (280); **egotzi dio batasunak** (8); **egotzi dio elak** (9); **egotzi dio epaileak** (4); **egotzi dio espainiako** (5); **egotzi dio eta** (4); **egotzi dio ppri** (5); **egotzi dio pse** (4); **egotzi diote** (158); **egotzi diote erredakzioa** (6); **egotzi diote jaurlaritzari** (5); **egotzi diote ppri** (4); **egotzi ditu** (4); **egotzi dituzte** (4); **egotzi dizkie** (5); **egotzi dizkiete** (7); **egotzi dizkio** (6); **egotzi dizkiote** (6); **egotzi dizuete** (4); **egotzi du** (7); **egotzi egin** (19); **egotzi egin zuen** (6); **egotzi egin zuten** (5); **egotzi egingo** (4); **egotzi egiten** (4); **egotzi eta** (33); **egotzi ez** (4); **egotzi ezer** (5); **egotzi izan** (23); **egotzi izan dio** (5); **egotzi nahi** (22); **egotzi nahi ditu** (4); **egotzi nahi izan** (5); **egotzi nahian** (4); **egotzi nion** (16); **egotzi ohi** (8); **egotzi zaie** (5); **egotzi zaio** (10); **egotzi zaizkio** (6); **egotzi zaizkion** (7); **egotzi zidan** (6); **egotzi zien** (197); **egotzi zien atzo** (4); **egotzi zien errua** (4); **egotzi zien sozialistei** (5); **egotzi zieten** (38); **egotzi zion** (444); **egotzi zion atzo** (17); **egotzi zion eajri** (4); **egotzi zion errua** (5); **egotzi zion espainiako** (8); **egotzi zion eta** (4); **egotzi zion eusko** (4); **egotzi zion fiskalak** (4); **egotzi zion gobernuari** (5); **egotzi zion jaurlaritzari** (4); **egotzi zion jose** (4); **egotzi zion ppri** (7); **egotzi zion psoeri** (5); **egotzi zioten** (125); **egotzi zioten atzo** (5); **egotzi zioten eta** (4); **egotzi zituen** (11); **egotzi zitzaion** (5); **egotzi zizkien** (6); **egotzi zizkion** (4); **egotzi zuelako** (4); **egotzi zuen** (49); **egotzi zuen epaileak** (14); **egotzi zuten** (15)

ehneri egotzi (4); **elkarri egotzi** (4); **ematea egotzi** (20); **ematea egotzi dio** (5); **ematea egotzi zion** (7); **erabili izana egotzi** (5); **erabiltzea egotzi** (38); **erabiltzea egotzi dio** (9); **erabiltzea egotzi zien** (4); **erabiltzea egotzi zion** (19); **eragin izana egotzi** (5); **eragitea egotzi** (6); **ere egotzi** (36); **ere egotzi zion** (11); **errua egotzi** (6); **esatea egotzi** (11); **esatea egotzi zion** (5); **eta egotzi** (5); **eta ppri egotzi** (4); **etari egotzi** (11); **etari egotzi zioten** (5); **ez betetzea egotzi** (12); **ez egitea egotzi** (13); **ez ematea egotzi** (5); **ez hartzea egotzi** (7); **ez izana egotzi** (12); **ez izatea egotzi** (26); **eza egotzi** (17); **eza egotzi diote** (4); **eza egotzi zion** (4); **ezer egotzi** (5); **ezkutatu izana egotzi** (4); **ezkutatzea egotzi** (4); **falta egotzi** (14); **faltari egotzi** (4); **faltsutzea egotzi** (4); **garestitzeari egotzi** (6); **gezurrak esatea egotzi** (4); **gezurretan aritzea egotzi** (12); **gobernuari egotzi** (13); **gobernuari egotzi zion** (6); **goratzea egotzi** (4); **gutxiestea egotzi** (5); **hari egotzi** (6); **hartzea egotzi** (27); **hartzea egotzi dio** (7); **hartzea egotzi zion** (6); **haustea egotzi** (9); **haustea egotzi dio** (5); **horri egotzi** (4)

ibarretxeri egotzi (5); **ibiltzea egotzi** (10); **inori egotzi** (5); **iruzur egitea egotzi** (8); **izana egotzi** (106); **izana egotzi die** (4); **izana egotzi diete** (9); **izana egotzi dio** (21); **izana egotzi diote** (14); **izana egotzi zien** (12); **izana egotzi zieten** (5); **izana egotzi zion** (22); **izana egotzi zioten** (10); **izana ere egotzi** (8); **izanari egotzi** (7); **izatea egotzi** (180); **izatea egotzi die** (15); **izatea egotzi diete** (4); **izatea egotzi dio** (29); **izatea egotzi diote** (14); **izatea egotzi zien** (29); **izatea egotzi zieten** (4); **izatea egotzi zion** (57); **izatea egotzi zioten** (15); **izatea ere egotzi** (5); **jainkoari egotzi** (5); **jartzea egotzi** (12); **jartzea egotzi dio** (4); **jartzea egotzi zion** (5); **jaurlaritzari egotzi** (4); **jokatu izana egotzi** (4); **jokatzea egotzi** (27); **jokatzea egotzi dio** (6); **jokatzea egotzi diote** (4); **jokatzea egotzi zion** (11); **kanpora egotzi** (4); **kide izatea egotzi** (15); **laguntza ematea egotzi** (7); **laguntzea egotzi** (7); **lanetik egotzi** (6); **lapurtzea egotzi** (4); **lotura izatea egotzi** (4); **manipulatzea egotzi** (5); **minuturako egotzi** (17); **minuturako egotzi zuen** (12); **nahi izana egotzi** (4); **nahi izatea egotzi** (64); **nahia egotzi** (12); **nahia egotzi zion** (5); **nork egotzi** (5); **nork egotzi ezer** (5); **osorako egotzi** (6); **parte hartzea egotzi** (12); **partida osorako egotzi** (6); **patronalari egotzi** (6); **patronalari egotzi zioten** (4); **petrolioaren garestitzeari egotzi** (5); **politikoa egotzi** (5); **politikoari egotzi** (4); **ppri egotzi** (6); **ppri egotzi zion** (4); **psoeri egotzi** (12); **psoeri egotzi zion** (6); **saiatzea egotzi** (13); **saiatzea egotzi zion** (6); **saltzea egotzi** (7); **sartzea egotzi** (5); **sortzea egotzi** (5); **sustatzea egotzi** (4); **taldeari egotzi** (4); **terrorismoa goratzea egotzi** (4); **txarrari egotzi** (4); **urratzea egotzi** (7); **zapaterori egotzi** (4); **zapaterori egotzi zion** (4); **zuritzea egotzi** (4)

aurretik egotziak (4); **aurretik egotziak zituen** (4); **bat erretzea egotzita** (4); **delitua egotzita** (4); **egitea egotzita** (21); **egotziak zituen** (4); **egotziko dio** (6); **egotzita atxilotu** (6); **egotzita epaitu** (5); **egotzitako beste** (4); **eman izana egotzita** (5); **ematea egotzita** (13); **eragitea egotzita** (5); **erretzea egotzita** (4); **errua egotziko** (4); **eta goratzea egotzita** (4); **etari laguntzea egotzita** (4); **falta egotziko** (4); **goratzea egotzita** (8); **hartu izana egotzita** (7); **hartzea egotzita** (13); **hiltzea egotzita** (11); **izana egotzita** (32); **izatea egotzita** (59); **kide izatea egotzita** (25); **laguntza ematea egotzita** (11); **laguntzea egotzita** (6); **lotura izatea egotzita** (7); **parte hartzea egotzita** (12); **terrorismoa goratzea egotzita** (4); **zela egotzita** (4)

bat egozten (11); **bati egozten** (7); **bati egozten dio** (4); **berari egozten** (5); **buruari egozten** (6); **delitu egozten** (6); **delitua egozteko** (5); **delitua egozten** (7); **egitea egozten** (7); **egoztea ez** (4); **egozteko eta** (4); **egozten die** (33); **egozten dien** (4); **egozten diete** (20); **egozten dio** (55); **egozten diot** (5); **egozten diote** (47); **egozten dioten** (5); **egozten diotena** (5); **egozten dizkiegun** (4); **egozten dizkio** (10); **egozten dizkion** (5); **egozten dizkiote** (5); **egozten dizkioten** (5); **egozten ez** (4); **egozten nion** (4); **egozten zaie** (7); **egozten zaien** (9); **egozten zaio** (18); **egozten zaion** (23); **egozten zaizkien** (11); **egozten zaizkien delituak** (7); **egozten zaizkio** (5); **egozten zaizkiola** (4); **egozten zaizkion** (19); **egozten zien** (7); **egozten zieten** (4); **egozten zion** (15); **egozten zioten** (11); **egozten zituen** (7); **egozten zitzaien** (5); **egozten zitzaion** (5); **egozten zizkion** (5); **egozten zizkioten** (5); **ematea egozten** (6); **ere egozten** (11); **ere egozten dio** (4); **eta egozten** (8); **ez egozteko** (4); **faltsutzea egozten** (4); **hartu izana egozten** (4); **izana egozten** (22); **izana egozten dio** (5); **izana egozten diote** (7); **izatea egozten** (42); **izatea egozten die** (10); **izatea egozten diete** (6); **izatea egozten dio** (10); **kanpora egozten** (4); **kide izatea egozten** (14); **niri egozten** (5); **zer egozten** (4)

---

egozentriko *izond* egozentrismoari dagokiona; egozentrismoak joa dagoena.

Pertsonaia **egozentriko** eta handiustea, esperimentazioa gustukoa duen Unibertsitateko irakaslea. Txema Ramirez de la Piscina

Ziztrina da, berekoia, harroa, **egozentrikoa**; gaizki ohitua dago; tiranoa da. Anton Garikano

Sortzaileak **egozentrikoak** dira baina kreatzen dutena energia alor bat da, besteengana zuzenki doana. Ana Urkiza

Uste **egozentriko** horretatik urruntzeko erarik onena kontrako ustea hartzea zela ematen zuen, hots, edozein gizarte-motaren ordezkari guztiak elkarren parean daudela filosofikoki. Iñaki Mendiguren

Askoz gogoeta xumeago bat etorri zait burura; xumea baina era berean **egozentrikoa**; orri hauek baitabilzkit uneoro jira eta bira, halaxe galdetu diot neure buruari: baina, norentzat ari naiz idazten? Xabier Mendiguren Elizegi

Konbentzio hau ilusio **egozentriko** distortsionatzaile baten kimua iruditzen zitzaion, Mendebaldeko Zibilizazioaren seme-alabak horretan erori zirelarik gainerako zibilizazio eta gizarte primitibo ezagun guztietako seme-alabak bezalaxe. Iñaki Mendiguren

Jarrera pragmatiko-**egozentriko** ibiltaria zen harena. Karlos Zabala

---

egozentrismo *iz* norberaren nortasunaren balioespen neurriz gainekoa.

Nitasunaren literatura: autobiografia, egunerokoak, oroitzapenak, aitorkizunak... egotismoaren gela itxi eta itsua, lehendik ere bisitatu izan dudana, eta horrexek ematen dit beldurra; ez lehendik landutako ildo batera itzultzeak, ezpada **egozentrismoaren** erresuman bertan-goxo egiteak. Xabier Mendiguren Elizegi

Artistaren **egozentrismoa** deituko diote batzuek. Berria - Kultura

Morettiri **egozentrismoa** leporatu izan diote sarritan. Berria - Kultura

---

egozketa 1 *iz* kanporatzea.

Fetuaren **egozketa** Gymiso [pilula] hartu eta handik hiru egunera gerta daiteke gehienez. Berria - Euskal Herria

Errege Katolikoen juduen **egozketaren** justifikazio ohikoa. Joxe Azurmendi

Etxea ordaindu ezin duten pertsonek beren «fede ona» frogatu beharko dute **egozketa** ekiditeko. Berria - Euskal Herria

Nicolas Sarkozy Frantziako Barne ministro ohiak bultzatutako legeak, egoera irregularrean bizi diren etorkinen **egozketak** bikoiztea zuen xede. Berria - Euskal Herria

Etorkinen haurren **egozketak** bertan behera uzteko eskatu zioten atzo Frantziari Baionako Suprefeturaren aitzinean. Berria - Euskal Herria

Herriaren sostengua jasoko du bertan eta ikusiko dugu orduan ea administrazioak **egozketa** indarrez ezartzen duen edo ez», gaineratu du abokatuak. Berria - Euskal Herria

Atxiloketa kopurua emendatu bada ere, administrazioak ezin ditu **egozketak** bikoiztu. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Lege mailan **egozketa** neurriak indargabetuko ditu eta APL laguntzen bidez beteko da ordaindu beharrekoa. Berria - Euskal Herria

Frantziako Sarkozy eta Perben legeen ondorioz legedia gogortu eta **egozketa** kopurua bikoizteko erabakia hartu dute. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta egozketa (3)

---

egozle **1** *iz* egozten duena.

Judizio **egozle** honen bidez erraz ikusten da bertan zera pentsatzen dela: arrazoimena ez dela sentimen harengatik afektatua, ez dela aldatzen. Ibon Uribarri

2 (hitz elkartuetan)

Haren neskatoa lagun zuela etxean sartu zion haur-**egozlea**. Aingeru Epaltza

Josteta den edo jokoa, ez dago batere garbi, baina nere gaitz-**egozleentzat** garbi dagoena da hizkuntza eta hitzak ez direla berenaz lantegi horretarako eginak. Iñaki Segurola

---

egozpen **1** *iz* egozketa.

Gure **egozpena** izaera enpirikoari soilik lotzen zaio. Ibon Uribarri

Beaumanoirrek dio ezen, epaiketa faltsua argudiatzen zuenak gizonetako bat **egozpen** pertsonalen bidez erasotzen bazuen, borroka izaten zela; baina epaiketa bera besterik erasotzen ez bazuen, apelazioa jasotako pareak bazeukala aukera egitea: auzia borroka bidez edo zuzenbidez garbitzea. Iñaki Iñurrieta

2 kanporatzea.

Egañak uste du Mario Salegi idazlearekin (Donostia, 1918-New York, 2005) eta haren artxiboekin aspaldidanik izan dituen eta dituen harremanak izan direla atxiloketaren eta **egozpenaren** motiboa. Berria - Kultura

---

egozte *iz* botatzea; kanporatzea.

-Anaia txikiaren inozentzia indartu du gero, azken puntuko erru-**egozte** hori hitzez hitz hartzeko arriskua baitzegoen, bestela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zeren, Axularrek berak zioen bezala, bekatuaren egiteko aski da puntu bat, gogoaren **egozte** bat, borondatearen deliberatze bat eta konsentitze bat. Joan Mari Irigoien

Beti pentsatu dut horrelako **egozte** judizialak kontuz egin behar direla, are gehiago **egoztearen** inguruan sortzen den publizitateak duen eragin iraingarria kontuan hartuta. Berria - Euskal Herria

---

egualdi ik **eguraldi**.

---

eguardi ik **eguerdi**.

---

eguargi ik **egun**[1] **2**.

---

eguarte *iz* egunsentitik eguerdia arteko denbora, goiz berandua; egunsentitik ilunabarra arteko denbora tartea.

Ahalegin etsigarri haien guztien ondotik, **eguarte** batez joan zen Lauaxeta, 1997ko iraileko bigarren astean, Andoaina, Egunkaria-ko erredakzio nagusira, nahiko goiz, hamarrak irian. Juan Luis Zabala

Leihotik zehar sartutako eguzki printzek esnatu ninduten **eguartean**. Juan Luis Zabala

Gaur Miramongo **eguarteetan** flauta eta harpa kontzertua. Berria - Kultura

Bilera itxiak egingo dira **eguarteetan** eta irekiak arratsaldeetan. Berria - Kultura

Atzo **eguartean** gaizki sentitu eta koman sartu zen, eta arratsaldean hil zen. Berria - Kultura

Afizioz eta ofizioz taberna izaki, goizeko kopak eta goiz parteko gosariak atera ondoren, **eguartean** ehun plater-edalontzi atondu eta hogei minutuko tximista-bazkariak ematen dituztenak. Edorta Agirre

egun ia (25); **egun igaro** (54); **egun igaro dira** (10); **egun ikasten** (10); **egun ikusten** (12); **egun ilun** (14); **egun indarrean** (62); **egun indarrean dagoen** (37); **egun indarrean dauden** (10); **egun inguru** (14); **egun inork** (13); **egun iragan** (26); **egun iraken** (12); **egun iraun** (46); **egun iraun zuen** (17); **egun iraunen** (16); **egun iraungo** (17); **egun iraungo du** (11); **egun irauten** (18); **egun itxaron** (13); **egun izan** (31); **egun izango** (24); **egun izango ditu** (11); **egun jakin** (21); **egun joan** (19); **egun lan** (19); **egun lanean** (11); **egun lau** (21); **egun lehen** (18); **egun lehenago** (240); **egun luze** (23); **egun luzeetan** (12); **egun luzez** (12); **egun martxan** (12); **egun mundu** (11); **egun munduan** (19); **egun munduko** (10); **egun nagusi** (14); **egun nagusia** (15); **egun nazionala** (15); **egun nola** (11)

egun on (231); **egun ona** (62); **egun ona izan** (29); **egun onak** (14); **egun oraindik** (46); **egun oraindik ere** (11); **egun oraino** (25); **egun oroz** (58); **egun oso** (92); **egun oso bat** (26); **egun osoa** (300); **egun osoa eman** (19); **egun osoa ematen** (22); **egun osoak** (11); **egun osoan** (590); **egun osoan eta** (11); **egun osoan ez** (11); **egun osoan zehar** (40); **egun osoko** (86); **egun osorako** (22); **egun osoz** (37); **egun pare** (72); **egun pare bat** (26); **egun pare batean** (10); **egun pare batez** (14); **egun pasa** (68); **egun pasatu** (41); **egun santu** (11); **egun sei** (10); **egun seinalatu** (22); **egun seinalatua** (12); **egun tristea** (21); **egun txar** (16); **egun txar bat** (13); **egun txarra** (40); **egun txarra izan** (13); **egun txarrak** (15); **egun xoragarri** (22); **egun xoragarri bat** (11); **egun zer** (11); **egun zeramatzan** (12); **egun zituen** (10); **egun zoragarri** (18); **egun zoragarria** (11); **egun zortzi** (10); **eguna egun** (10); **egunez egun** (205); **egunik egun** (19)

ehun egun (21); **elkartasun egun** (12); **emandako egun** (10); **ematen zuen egun** (13); **ere egun** (100); **eta bertze egun** (15); **eta bi egun** (28); **eta bost egun** (14); **eta egun** (1402); **eta egun bat** (30); **eta egun batean** (133); **eta egun bateko** (17); **eta egun batetik** (12); **eta egun batez** (40); **eta egun batzuetara** (12); **eta egun batzuk** (23); **eta egun berean** (35); **eta egun ere** (16); **eta egun gutxi** (11); **eta egun gutxira** (25); **eta egun guzian** (11); **eta egun hartan** (64); **eta egun horretan** (43); **eta egun osoa** (25); **eta egun osoan** (35); **eta egunez egun** (14); **eta gaur egun** (326); **eta hamar egun** (13); **eta handik egun** (27); **eta hiru egun** (27); **eta lau egun** (16); **etxean egun** (11); **ez da egun** (55); **ez dela egun** (11); **ez dira egun** (16); **ez du egun** (20); **ez dut egun** (10); **ez egun** (38); **ez zen egun** (20); **ez zuen egun** (14); **ezen egun** (13); **ezkontza egun** (13); **ezkontza egun hautan** (11); **ezta egun** (12); **feria egun** (10); **festa egun** (18); **gabeko egun** (10); **gau eta egun** (317)

gaur egun (4687); **gaur egun arte** (41); **gaur egun badakigu** (16); **gaur egun beste** (18); **gaur egun bezala** (10); **gaur egun bi** (16); **gaur egun bizi** (20); **gaur egun dagoen** (23); **gaur egun dauden** (18); **gaur egun dituen** (14); **gaur egun duen** (23); **gaur egun duten** (11); **gaur egun egiten** (27); **gaur egun erabiltzen** (16); **gaur egun ere** (248); **gaur egun eta** (22); **gaur egun euskal** (44); **gaur egun ez** (151); **gaur egun ezagutzen** (13); **gaur egun ezin** (13); **gaur egun gero** (11); **gaur egun ia** (13); **gaur egun indarrean** (23); **gaur egun munduan** (12); **gaur egun nagusi** (10); **gaur egun oraindik** (31); **gaur egun oraino** (20); **gaur egun oso** (22); **gaurko egun** (12); **gehexan pontto egun** (30); **genituen egun** (17); **genuen egun** (24); **ginen egun** (27); **greba egun** (18); **gure egun** (22); **gure egun guzietako** (15); **hain egun** (11); **hainbat egun** (27); **hainbeste egun** (11); **halako egun** (30); **halako egun batean** (19); **hamabi egun** (19); **hamabost egun** (133); **hamabost egun barru** (15); **hamahiru egun** (11); **hamaika egun** (10); **hamalau egun** (10); **hamar bat egun** (32); **hamar egun** (199); **hamar egun barru** (10); **hamar egun lehenago** (14); **handik egun** (170); **handik egun batzuetara** (88); **handik egun gutxira** (46); **handik egun gutxitara** (11); **harik eta egun** (48); **hasi eta egun** (10); **hau egun** (15); **hemendik egun** (15); **hil baino egun** (12); **hiru egun** (490); **hiru egun baino** (10); **hiru egun barru** (26); **hiru egun egin** (15); **hiru egun eman** (20); **hiru egun eta** (28); **hiru egun geroago** (31); **hiru egun horietan** (21); **hiru egun lehenago** (44); **hiruzpalau egun** (18); **hogei egun** (30); **holako egun** (21); **hori da egun** (10); **hori egun** (20); **hori gaur egun** (16); **huna egun** (13); **hura egun** (15); **hurrengo egun** (18)

ia egun (42); **ia egun osoa** (10); **ia egun osoan** (12); **iragan egun** (22); **iragan egun hauetan** (14); **izan da egun** (10); **izan egun** (11); **izan zen egun** (21); **izanen da egun** (17); **jai egun** (34); **jardun nauk egun** (12); **kasik egun** (23); **lan egun** (21); **lau egun** (226); **lau egun geroago** (22); **lau egun lehenago** (18); **lehen egun** (56); **lehenengo egun** (11); **maiatzeko egun** (14); **mila egun** (20); **mobilizazio egun** (19); **nahiz eta egun** (17); **naiz egun** (31); **nauk egun** (13); **nauk egun osoan** (12); **neguko egun** (29); **nik egun** (22); **nintzen egun** (42); **nion egun** (13); **nituen egun** (12); **nola egun** (28); **nuen egun** (53); **nuen egun hartan** (17); **ondoko egun** (19); **opor egun** (14); **orai dela egun** (10); **orain dela egun** (20); **orain egun** (28); **orain egun batzuk** (20); **oraindik egun** (12); **oso egun** (28); **pare bat egun** (22); **pontto egun** (30); **pontto egun eta** (30); **sei egun** (61); **ta egun** (10); **udaberriko egun** (21); **udako egun** (29); **urteko egun** (21); **uztaileko egun** (10); **zait egun** (12); **zazpi egun** (76); **zegoen egun** (23); **zein egun** (14); **zela egun** (19); **zen egun** (237); **zen egun batean** (22); **zen egun berean** (28); **zen egun hartan** (38); **zen egun hura** (11); **zen egun osoan** (20); **zen eta egun** (11); **zenbait egun** (185); **zenbait egun lehenago** (23); **zenbat egun** (43); **zer egun** (29); **zeren egun** (14); **zeren eta egun** (10); **zidan egun** (22); **zion egun** (40); **ziren egun** (113); **ziren egun berean** (15); **ziren egun hartan** (25); **ziren egun osoan** (14); **zituen egun** (52); **zituzten egun** (31); **zitzaion egun** (17); **zonbait egun** (59); **zonbait egun barne** (10); **zonbeit egun** (17); **zortzi egun** (111); **zuen egun** (229); **zuen egun batean** (11); **zuen egun berean** (28); **zuen egun hartan** (47); **zuen egun osoa** (22);

zuen egun osoan (10); zuen gaur egun (19); zuten egun (83); zuten egun berean (13); zuten egun hartan (16)

aberri eguna (159); aek eguna (11); aldeko eguna (14); alderdi eguna (13); alkartasun eguna (13); amnistiaren eguna (18); atseden eguna (54); atzoko eguna (41); aurkako nazioarteko eguna (15); aurtengo aberri eguna (14); azken eguna (125); azken eguna arte (19); azoka eguna (11); baina eguna (13); bere eguna (25); bertso eguna (12); besta eguna (30); bigarren eguna (30); biharko eguna (21); borroka eguna (12); bozketa eguna (14); da eguna (99); den eguna (40); dolu eguna (20); du eguna (25); duen eguna (25); dugu eguna (11); dute eguna (30); egiteko eguna (25); eguberri eguna (15)

eguna antolatu (32); eguna antolatu du (13); eguna antolatu dute (10); eguna antolatuko (12); eguna antolatzen (15); eguna argitu (100); eguna argitu arte (15); eguna argitu baino (16); eguna argitu orduko (15); eguna argitu zuenean (16); eguna argitzean (35); eguna argitzen (48); eguna argitzen ari (18); eguna argitzen hasi (11); eguna arte (71); eguna baino (35); eguna baino lehen (12); eguna baita (12); eguna bera (10); eguna bete (12); eguna bezain (12); eguna da (129); eguna da gaur (14); eguna dela (61); eguna dela eta (44); eguna donibane (10); eguna du (14); eguna dugu (16); eguna dute (23); eguna ederki (10); eguna edo (14); eguna egin (26); eguna eginen (10); eguna egingo (29); eguna egingo da (11); eguna egingo dute (10); eguna egun (10); eguna ere (71); eguna eta (138); eguna eta gaua (27); eguna eta ordua (14); eguna etorri (54); eguna euskal (12); eguna ez (59); eguna ez da (13); eguna hasi (13); eguna heldu (13); eguna hurbildu (10); eguna hurbildu ahala (10); eguna hurbiltzen (11); eguna igandean (13); eguna iragan (30); eguna iragan da (15); eguna iraganen (11); eguna iraganen da (11); eguna iritsi (45); eguna iritsi zen (11); eguna iritsi zenean (12); eguna izan (133); eguna izan zen (65); eguna izan zuten (15); eguna izanen (23); eguna izanen da (11); eguna izango (73); eguna izango da (39); eguna izango dute (10); eguna izanik (12); eguna izendatu (15); eguna joan (54); eguna joan eguna (10); eguna joan eta (33); eguna kari (13); eguna noiz (19); eguna ospatu (59); eguna ospatu zuten (16); eguna ospatuko (56); eguna ospatuko da (17); eguna ospatuko dute (31); eguna ospatzeko (27); eguna ospatzen (39); eguna zabaldu (15); eguna zela (46); eguna zela eta (24); eguna zen (79); eguna zuen (14); eguna zuten (16)

elkartasun eguna (26); ematen zuen eguna (11); emazteen eguna (11); eskubideen eguna (24); eta eguna (128); eta eguna etorri (32); etxe euskaldunen eguna (11); europako eguna (10); europaren eguna (11); euskal selekzioaren eguna (11); euskaldunen eguna (11); euskararen eguna (34); ezabaketa eguna (10); feria eguna (68); gabeko eguna (22); gaua eta eguna (12); gaur da eguna (10); gaurko eguna (53); genuen eguna (13); greba eguna (67); gudari eguna (13); handiko eguna (12); hartzeko eguna (11); haurren eguna (27); hauteskunde eguna (17); heriotzako eguna (14); heriotzako eguna arte (11); herritarren eguna (30); hirugarren eguna (31); hizkuntz eskubideen eguna (10); hizkuntza eskubideen eguna (12); hurrengo eguna (31); jai eguna (25); jaunaren eguna (29); joan eguna (15); joan eguna etorri (10); joan eta eguna (32); kantu zaharraren eguna (10); kantuaren eguna (27); kontrako eguna (21); lan eguna (16); laugarren eguna (13); lehen eguna (65); lehenengo eguna (24); liburuaren nazioarteko eguna (14); lurraren eguna (14); merkatu eguna (12); mobilizazio eguna (27); musaren eguna (11); nafarroaren eguna (30); nazioarteko eguna (124); nazioarteko eguna da (16); nazioarteko eguna dela (19); nazioarteko eguna izan (11); nuen eguna (21); protesta eguna (11); sagarno eguna (21); selekzioaren eguna (11); urtebetetze eguna (24); xalbador eguna (16); zaharraren eguna (10); zazpigarren eguna (10); zen eguna (77); zuen eguna (79); zuten eguna (36)

aberri egunak (11); azken egunak (88); baina egunak (20); bere egunak (15); bi egunak (25); dira egunak (10); diren egunak (17); ditu egunak (12); egunak argitu (12); egunak aurrera (38); egunak aurrera egin (15); egunak dira (10); egunak direla (12); egunak edo (10); egunak egin (11); egunak eman (12); egunak ematen (15); egunak ere (29); egunak eta (136); egunak eta asteak (15); egunak eta egunak (31); egunak eta gauak (21); egunak etorri (30); egunak ez (33); egunak igaro (24); egunak izan (17); egunak jin (15); egunak joan (62); egunak joan ahala (11); egunak joan eta (12); egunak pasatu (16); egunak pasatu ahala (10); egunak pasatzen (10); egunak zeramatzan (10); egunak ziren (17); eta egunak (150); eta egunak etorri (10); eta egunak joan (11); gauak eta egunak (11); gaurko egunak (10); greba egunak (12); hiru egunak (27); holako egunak (13); hurrengo egunak (13); ingurumenaren egunak (11); joan egunak (10); joan eta egunak (10); lehen egunak (29); nire egunak (16); ondarearen egunak (49); ondoko egunak (20); opor egunak (11); penitentzia egunak (19); ziren egunak (15); zituen egunak (26)

aberri egunaren (38); aberri egunari (11); egunarekin bat (12); egunarekin batera (10); egunaren amaieran (10); egunaren argi (11); egunaren argia (12); egunaren bezperan (32); egunaren biharamunean (14); egunaren egitaraua (10); egunaren eta (15); egunaren harira (39); egunaren karietara (41); egunaren zain (15); egunaz eta (15); egunaz geroztik (12); eta egunaren (30); eta egunaz (10); gaurko egunari (10); nafarroaren egunaren (12); nazioarteko egunaren (35); nazioarteko egunaren harira (10)

aberri egunean (85); atzoko egunean (19); aukeraketa egunean (15); aurkezpen egunean (20); aurreko egunean (99); aurreneko egunean (18); auzi egunean (23); azken egunean (176); azkeneko egunean (10); bainan gaurko egunean (10); baino egunean (12); bat egunean (17); bazko egunean (10); bere egunean (26); berri egunean (11); besta egunean (11); bi egunean (28); bigarren egunean (71); biharko egunean (20); bosgarren egunean (13); bost egunean (20); bozketa egunean (14); da gaurko egunean (11); da joanden egunean (26); den egunean (116); diren egunean (16); ditu egunean (10); duen egunean (20); eguberri egunean (24)

egunean baino (23); egunean baino egunean (11); egunean behin (40); egunean bere (20); egunean berean (17); egunean bertan (136); egunean beste (12); egunean bezain (14); egunean bezala (28); egunean bi (58); egunean bi aldiz (19); egunean bitan (10); egunean bost (14); egunean egin (50); egunean egindako (10); egunean egiten (11); egunean egunean (32); egunean eguneko (22); egunean egunekoa (17); egunean eman (12); egunean ere (78); egunean esan (12); egunean eta (57); egunean ez (49); egunean gure (12); egunean hamar (17); egunean hasi (10); egunean hil (12); egunean hiru (52); egunean hiru aldiz (15); egunean ikusi (14); egunean izan (13); egunean izango (12); egunean jokatuko (12); egunean lau (17); egunean nire (10); egunean oraino (13); egunean parte (20); egunean parte hartzeko (11); egunean zehar (133); egunean zer (11); egunean zortzi (11)

egungo egunean (78); ehortz egunean (21); ehorzketa egunean (29); errege egunean (13); errepublika egunean (16); eta azken egunean (15); eta egunean (63); eta gaurko egunean (12); eta hirugarren egunean (14); eta hurrengo egunean (119); eta mobilizazio egunean (10); eta zazpigarren egunean (11); ezkontza egunean (11); gabon egunean (10); gaur den egunean (14); gaur egunean (61); gaurko egunean (254); gaurko egunean ere (21); genuen egunean (12); ginen egunean (12); greba egunean (21); hamabost egunean (27); hamar egunean (14); hauteskunde egunean (26); hil zen egunean (13); hilaren lehen egunean (17); hileta egunean (13); hiru egunean (55); hirugarren egunean (79); hurrengo egunean (570); hurrengo egunean bertan (17); hurrengo egunean ere (14); inaugurazio egunean (11); jaiotza egunean (10); joan den egunean (50); joanden egunean (216); lau egunean (20); laugarren egunean (32); lehen egunean (276); lehenbiziko egunean (18); lehendabiziko egunean (15); lehenengo egunean (52); lehengo egunean (91); mendekoste egunean (17); mobilizazio egunean (18); nazioarteko egunean (32); nintzen egunean (21); nuen egunean (22); oraiko egunean (25); pilota aukeraketa egunean (10); seigarren egunean (21); urteberri egunean (11); urtebetetze egunean (30); zazpi egunean (12); zazpigarren egunean (54); zen egunean (136); ziren egunean (30); zituen egunean (25); zituzten egunean (12); zortzigarren egunean (21); zuen egunean (86); zuten egunean (45)

aberri eguneko (22); aurreko eguneko (25); azken eguneko (28); bat eguneko (12); bederatzi eguneko (14); berrogei eguneko (13); bi eguneko (104); bi eguneko epea (12); bigarren eguneko (11); bost eguneko (65); bost eguneko epea (12); da eguneko (14); dira eguneko (10); egunean eguneko (22); egunean egunekoa (17); eguneko argia (10); eguneko atsedena (11); eguneko azken (28); eguneko beste (31); eguneko bi (12); eguneko bidaia (20); eguneko bidea (15); eguneko bidean (10); eguneko dolar (10); eguneko egonaldia (17); eguneko egonaldia egingo (10); eguneko ekitaldi (16); eguneko ekitaldi nagusia (10); eguneko epea (100); eguneko epea du (11); eguneko epea eman (22); eguneko epea izango (10); eguneko epean (35); eguneko eta (12); eguneko goizean (10); eguneko gose (16); eguneko greba (28); eguneko ihesaldian (13); eguneko kalte (10); eguneko lan (19); eguneko lehen (29); eguneko ordu (12); eguneko soldata (10); eguneko zentroa (10); eguneko zentroak (13); eguneko zigorra (11); egunekoa da (16); egunekoa izan (10); errege eguneko (26); eta eguneko (52); eta hiru eguneko (10); gaur eguneko (44); hamabost eguneko (28); hamar eguneko (55); hamar eguneko epea (13); hiru eguneko (124); hiru eguneko bidea (10); hiru eguneko epea (11); hogei eguneko (13); hurrengo eguneko (31); izan zen eguneko (12); joanden eguneko (16); lau eguneko (59); lau eguneko greba (10); lehen eguneko (19); lehengo eguneko (35); sei eguneko (26); zazpi eguneko (19); zen eguneko (30); ziren eguneko (10); zortzi eguneko (12); zuen eguneko (25)

agian egunen (11); agian egunen batean (10); baina egunen (30); baina egunen batean (30); beste egunen (26); beste egunen batean (23); bi egunen (44); bi egunen buruan (31); bizpahiru egunen (15); bizpahiru egunen buruan (14); bost egunen (13); da egunen (15); da egunen batean (12); egunen batean (803); egunen batean itzuliko (11); egunen baten (14); egunen buruan (260); egunen buruko (15); egunen eta (10); egunen ondoren (11); eta egunen (59); eta egunen batean (47); eta hiru egunen (11); hamabost egunen (18); hamabost egunen buruan (16); hamar egunen (21); hamar egunen buruan (17); hauetako egunen (13); hauetako egunen batean (13); hiru egunen (61); hiru egunen buruan (50); lau egunen (13); zazpi egunen (15); zazpi egunen buruan (12); zenbait egunen (38); zenbait egunen buruan (34); zortzi egunen (16); zortzi egunen buruan (11)

aberri egunerako (33); aurreko egunetako (17); azken egunera (20); azken egunera arte (18); azken eguneraino (11); azken egunetako (80); bat egunera (13); bi egunera (67); bi egunetako (26); bost egunera (12); den egunera (13); den egunera arte (11); egunera arte (88); egunera arteko (12); egunetik egunera (213); eta bi egunera (23); eta egunetik egunera (26); eta hamar egunera (13); eta hiru egunera (12); eta hurrengo egunerako (10); gaur egunera (34); gaur egunera arte (12); hamabost egunera (17); hamar egunera (20); handik bi egunera (34); handik hiru egunera (33); hiru egunera (53); hiru egunetako (22); hirugarren egunerako (12); hurrengo egunera (16); hurrengo egunera arte (13); hurrengo egunerako (30); lau egunera (18); lau egunetako (10); lehen egunetako (13); ondoko egunetako (27); zortzi egunera (21)

aintzineko egunetan (17); aitzineko egunetan (11); aurreko bi egunetan (10); aurreko egunetan (115); aurreneko egunetan (13); azken bi egunetan (24); azken egunetan (305); beste egunetan (14); bi egunetan (142); bi egunetara (22); bi egunetarako (10); bizpahiru egunetan (13); bost egunetan (51); da azken egunetan (12); da ondoko egunetan (10); datozen egunetan (194); datozen egunetarako (24); den egunetan (19); diren egunetan (14); edozein egunetan (54); egunetan baino (22); egunetan bakarrik (10); egunetan bere (11); egunetan beste (13); egunetan bezala (17); egunetan edo (17); egunetan egin (29); egunetan egingo (12); egunetan egon (13); egunetan erabakiko (10); egunetan ere (74); egunetan eta (50); egunetan eta egunetan (13); egunetan ez (60); egunetan ikusi (10); egunetan izan (11); egunetan izango (10); egunetan jakinaraziko (12); egunetan zehar (19); egunetan zer (10); eta azken egunetan (19); eta datozen egunetan (21); eta egunetan (23); eta hiru egunetan (11); eta hurrengo egunetan (29); eta ondoko egunetan (22); euri egunetan (10); gainerako egunetan (11); hainbat egunetan (19); halako egunetan (13); hamabost egunetan (31); hamar egunetan (32); hasierako egunetan (14); hiru egunetan (133); hiru egunetara (11); hiru egunetarako (14); hurrengo bi egunetan (11); hurrengo egunetan (241); hurrengo egunetan ere (16); hurrengo hiru egunetan (10); jai egunetan (21); lau egunetan (60); lehen bi egunetan (12); lehen egunetan (90); lehenbiziko egunetan (10); lehenengo egunetan (31); ondoko egunetan (300); ondoko egunetan ere (18); ondorengo egunetan (45); sei egunetan (22); zazpi egunetan (18); zein egunetan (42); zen egunetan (21); zenbait egunetan (30); zuen egunetan (13)

egunetik aurrera (14); egunetik behin (23); egunetik bertatik (11); egunetik egunera (213); eta egunetik (26); eta egunetik egunera (26); lehen egunetik (68); lehenengo egunetik (30); zen egunetik (17)

bat egunez (27); bederatzi egunez (12); berrogei egunez (34); bi egunez (197); bi egunez segidan (16); bigarren egunez (14); bizpahiru egunez (27); bost egunez (79); bost egunez segidan (15); da bi egunez (12); da egunez (10); egunez behin (14); egunez eduki (16); egunez egin (21); egunez egingo (10); egunez egon (30); egunez egon zen (14); egunez egun (205); egunez ere (14); egunez eta (48); egunez eta gauez (19); egunez ez (31); egunez ibili (16); egunez izan (11); egunez izanen (13); egunez jarraian (32); egunez segidan (90); eta bi egunez (12); eta egunez (65); eta egunez egun (14); ez egunez (11); gau eta egunez (10); gaurko egunez (28); hainbat egunez (24); hamabost egunez (31); hamar egunez (59); hiru egunez (239); hiru egunez segidan (16); hirugarren egunez (11); hogeita hamar egunez (11); lau egunez (113); lau egunez segidan (11); sei egunez (51); zazpi egunez (89); zenbait egunez (54); zonbait egunez (17); zortzi egunez (55)

baina egungo (24); baina gaur egungo (27); da egungo (86); da gaur egungo (42); dela egungo (13); dio egungo (10); dira egungo (26); ditu egungo (11); du egungo (28); du gaur egungo (22); dute egungo (22); duzu egungo (10); edo egungo (12); egungo arte (10); egungo egoera (251); egungo egoera ez (12); egungo egoera politikoa (21); egungo egoera politikoan (11); egungo egoera politikoaren (10); egungo egoerak (25); egungo egoeran (26); egungo egoerara (20); egungo egoeraren (51); egungo egoerari (24); egungo egoeratik (10); egungo egoeraz (14); egungo egunean (78); egungo ekonomia (12); egungo eredu (12); egungo errealitatea (19); egungo espainiako (11); egungo esparru (33); egungo esparru juridiko (12); egungo espetxe (20); egungo estatu (10); egungo eta (13); egungo euskal (48); egungo futbolean (14); egungo gazteek (12); egungo gizarte (26); egungo gizartea (10); egungo gizarteak (12); egungo gizartean (47); egungo gizartearen (19); egungo hainbat (12); egungo hezkuntza (11); egungo lan (11); egungo lehen (18); egungo lehendakariak (11); egungo marko (10); egungo mundu (10); egungo munduan (12); egungo presidente (33); egungo presidentea (24); egungo presidenteak (24); egungo presidentearen (11); egungo sistema (20); egungo testuinguru (12); egungo txapelduna (31); egungo txapelduna da (10); ere egungo (13); eta egungo (196); eta egungo egoera (11); eta gaur egungo (88); gaur egungo (1157); gaur egungo egoera (62); gaur egungo euskal (28); gaur egungo gizarte (14); gaur egungo gizartean (17); gure egungo (24); hori da egungo (11); nafarroaren egungo (10); zuen egungo (20)

da egungoa (17); egungoa baino (11); eta egungoa (10); gaur egungoa (22)

bizitzako egunik (14); **egunik egun** (19); **egunik ez** (15); **egunik onena** (15)

ari da egunotan (32); **ari dira egunotan** (47); **aurreko egunotan** (10); **azken bi egunotan** (31); **azken egunotako** (78); **azken egunotan** (445); **bi egunotan** (42); **da azken egunotan** (23); **da egunotan** (117); **dabil egunotan** (10); **dago egunotan** (26); **datozen egunotan** (106); **daude egunotan** (16); **dira azken egunotan** (31); **dira egunotan** (111); **ditu azken egunotan** (14); **ditu egunotan** (25); **dituzte azken egunotan** (19); **dituzte egunotan** (40); **du azken egunotan** (16); **du egunotan** (36); **dute azken egunotan** (15); **dute egunotan** (35); **egunotan bilboko** (11); **egunotan bilbon** (12); **egunotan egin** (16); **egunotan egingo** (11); **egunotan egiten** (14); **egunotan egiten ari** (12); **egunotan ere** (11); **egunotan espainiako** (10); **egunotan eta** (20); **egunotan euskal** (19); **egunotan euskal herrian** (15); **egunotan ez** (19); **egunotan hainbat** (19); **egunotan izan** (10); **eta azken egunotan** (21); **eta datozen egunotan** (14); **eta egunotan** (27); **gure egunotan** (16); **hamar egunotan** (10); **hiru egunotan** (16); **hurrengo egunotan** (23); **izan da egunotan** (18); **izan dira egunotan** (14); **ondoko egunotan** (14)

---

egunabar *iz* egunsentia.

Hotzez dardaraka iratzarri zara **egunabarra** baino lehen. Xabier Montoia

Hamaika aldiz berritua zuen **egunabarretik** Atlantic Motelean ikusia. Xabier Montoia

Egunabarreko euri arinak Branen zentzumen lausotuak argitu zituen. Joanes Urkixo

---

egunaldi *iz* eguna.

Musikaren **egunaldian**. Herria

Iragan abenduaren 15eko hauteskundeen osteko **egunaldi** odoltsuena bizitu zen atzo Iraken. Berria - Mundua

Alabaina, pastoralzaleek ez dute ziur asko huts egin nahi izango **egunaldi** berezi hauentzako apailatzen den egitarau bereziari. Berria - Kultura

Biharko Lurra Elkarteak, Emazteek Diote eta Eihartzea kultur etxearen laguntzarekin, helduden irailaren 15 eta 16 an, Hazparnen, ASUNAK deitu **egunaldiak** antolatuko ditu., laborantza biologikoa eta osagarriari buruzko aste burua izanen da: hitzaldi, tailer eta feira batzuen inguruan. Herria

Horko **egunaldia** 50 euro gostatzen da, zahar etxe pribatuetan 75 delarik komunzki. Herria

---

egunargi ik **egun**[1] **2**.

---

egunargitze *iz* eguna argitzea.

Bederatzi hilabetez libre ibili munduko hamar hiriburu populatuenetako edozeinetan, hirian zehar goizalbatik goizaldera libre ibili **egunargitzearen** nahiz iluntzearen lekuko izateko. Joseba Sarrionandia

---

egunari *iz* egunkaria.

Zuberoako **egunarian** uskaraz 1906an irakur zitekeen pasarte xuhur hau lekuko: [...]. hau ez baita ez olerkia, ez antzerkia, ez ipuina, ez eleberria, ez saioa, ez artikulua, ez eta ere haren aitak hain maite zuen bertsoa, baina bai euskal literaturan oraino guti erabili den "egunekoa" edo **"egunaria"**. Patziku Perurena

"Euskal Herrian bizikletari" haren lehen liburua, bidaia baten egunean eguneko idazkia besterik ez da, hots, zazpi euskal herrietan barna, hiru lagunek, bizikletaz eta bost egun barne, egin duten 700 kilometroko itzuliaren **egunaria**. Piarres Aintziart

---

egunbete *(orobat **egun bete**)* *iz* egun bat osoa.

Preso eraman arte badut beta itxaroteko, eta hori **egunbete** izango ahal da oraindik! Matías Múgica

Belarri barnean txistu egiten zidaten oraino **egunbete** lehenago nire andreak ate horretaz haraindi erran itsuskeria guztiek. Aingeru Epaltza

Ekialdean abiaturik beti sortalderantz joz gero munduaren itzulia egiten dela frogatzeaz gainera, bidean **egunbete** aurreratzen dela konturatu zen Pigaffeta. Edorta Jimenez

Nazionalista bat atxilotzen dutelarik Korsikan, ohiko jokabidea da Bastiako edo Aiacciuko polizia etxeetan **egunbete** igaro ondoren Parisera eramatea. Berria - Mundua

Oloruen **egun bete** egin genuen, pausan. Aingeru Epaltza

Horri, gutienez ere, bertze **egun bete** gehitu behar zaio, zendu zenetik uretara bota zuten arte. Aingeru Epaltza

Anartean, Adnan al Zorfi Najafeko gobernadoreak **egunbeteko** ultimatuma eman zien gerrillari xiitei hiritik alde egiteko. Berria - Mundua

---

egunbetetsu *iz* egun bat osoa, gutxi gorabehera.

Zamape horretan, **egunbetetsuko** bizarra ferekatu nuen, Kristinaren hitzen nondik norako guztiak mamitu nahirik. Aingeru Epaltza

---

egundahalako ik **egundalako**.

---

egundaino *(ETCn **1.048** agerraldi)* *adlag* gaur arte. (ikus beheko konbinatorian egundaino hitzaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina egundaino (3); **bat egundainokotan** (4); **bazterrak egundainokotan** (4); **da egundaino** (3); **dira egundainokotan** (4); **ditu egundaino** (3); **du egundaino** (8); **dut egundaino** (9); **dute egundaino** (3); **dute egundainokotan** (3); **egundaino ez** (39); **egundaino ez bezala** (4); **egundaino ez da** (3); **egundaino ez du** (3); **egundaino ez dugu** (3); **egundaino ez dut** (5); **egundaino ez nuen** (3); **egundaino ezagutu** (3); **egundaino hain** (3); **egundaino ikusi** (4); **egundaino izan** (3); **egundainokotan berriz** (3); **egundainokotan beste** (3); **egundainokotan zernahi** (4); **egundainotik eta** (3); **egundainotik izan** (3); **eta egundaino** (13); **eta egundaino ez** (5); **eta egundainoko** (3); **eta egundainokotan** (3); **ez du egundaino** (7); **ez dut egundaino** (9); **ez naiz egundaino** (4); **ez nuen egundaino** (5); **holakorik egundaino** (3); **magali egundainokotan** (3); **naiz egundaino** (4); **nuen egundaino** (5)

---

egundalako *(orobat **egundahalako**)* *izlag* ikaragarri handia, eskerga, itzela.

-Berorrek esaten duena izango da, don Pedro; baina berorren semeak senarra hil ziolako kontuarekin atzo hona etorri zen emakumeak, **egundalako** nahigabea zeukan. Juan Garzia

Etxe zahar hartan ohol bakoitzak kirrinka egiten zuen, ate bakoitzak **egundalako** zarata. Xabier Mendiguren Elizegi

Horra non ikusten dudan behean, Matzakuko horretan, gure bou txikiak **egundalako** suan ari direla Cervera kanoiariarekin eta España korazatuarekin. Koldo Izagirre

Bazetorrela Ulises, lehoi baten antzera, errudun guztiak zigortzera, itsasoan **egundalahako** nekeak nozitu eta gero. Juan Kruz Igerabide

egundo *adlag (orobat **eguno** g.er.)* **1** inoiz ez. ik **egundaino**. (ezezko esaldietan)

Egundo izan ez balitz bezalaxe desagertu zen. Patxi Zubizarreta

Harryk ez zuen **egundo** itxaropena galtzen egunen batean baiezkoa emango ziola. Oskar Arana

Ez da itzuliko **egundo**; ez da bueltatuko sekula. Juan Garzia

-Zuen aita ez ei zan ia **egundo** eleizara joaten. Xabier Amuriza

Falangistek ez zutela hemen militanterik **egundo** izango, karlismoaren mistika ulertzen ez zutelako. Joseba Sarrionandia

Hemen ez du inork **egundo** herensugerik ikus. Iñaki Segurola

Gizonek ez zuten **egundo** ostera ikusi. Juan Garzia

Beti dira zatiak, proiektuak, entseguak, **egundo** osatuko ez diren zirriborroak. Joseba Sarrionandia

Orain ulertzen dut zergatik ez dituen betaurrekoak **egundo** eranzten. Patxi Zubizarreta

Ofizialki **egundo** onartu ez arren, kartzeletan egin egiten dute preso politiko eta sozialen arteko bereizketa. Jokin Urain

Begi haietan **egundo** inorengan topatu ez zuen zerbait zegoen. Patxi Zubizarreta

Haginlaria zen, ekinaren poderioz ikasia baina, **egundo** ez baitzen eskolan ibili, ez odontologiakoan ez bestelakoetan. Patxi Zubizarreta

Eskekotasunean ere, **egundo** ez dut arima gupidatsu bat topatu. Patxi Zubizarreta

Koblakariak lehenago **egundo** sentitu ez zuen poztasun betea sentiarazi zion eta. Patxi Zubizarreta

Aspaldi gertatu eta **egundo** garrantzitsuak iruditu ez zaizkizun kontuño batzuk darabiltzazu, horietan bailitzan zure biziaren funtsa. Xabier Montoia

Eta begia erretzeraino hisoriaren zoko-moko guztiak arakatu arren **egundo** ezin izango genuke jakin norainokoa zen ziega haietan egondako gizon-emakumeen izua eta oinazearen tamaina. liburuak heldu ziren, handi eta ederrak, nik **egundo** irudikatu ezinak. Jokin Urain

Ondorengo gertakariek **egundo** ez bezalako informazio zaparrada sortu zuten han-hemen. Iñigo Aranbarri

Halako manipulazioek, ingeniaritza genetiko terminoaz izendatuak, **egundo** ez bezalako lanabes indartsua jarri dute biologiaren esku. Juan Garzia

2 (gabe-dun esaldietan)

Oso litekeena da Thoreau **egundo** sexu-harremanik izan gabe iritsi izana hilobira. Oskar Arana

Goizeko seietan, **egundo** hutsegin gabe eta atzeratu ezinik, Padre Solanak txirrina jotzen zuen. denborarekin orain garen bezain urrunak eta desordukoak izango ginenik **egundo** susmatu gabe. Joseba Sarrionandia

Hara non, besteen artean bazen [liburu] bat, ordura arte **egundo** ere ikusi barik neukan letra molde ezezagun batean izkiriatua zena. Edorta Jimenez

Bera **egundo** ibili gabea zen taxi batean! Patxi Zubizarreta

Hargatik uste zuten basamorturik **egundo** zapaldu gabeko zenbait jakintsuk han jaioa zela Jainko Bakarra. Iñaki Segurola

Aita hilda gero bere logelako armairuan kutxa bat topatu genuen, **egundo** ireki gabeko gutunez beterik, Euskal Herritik helduak denak. Joseba Sarrionandia

Egundo ezagutu gabeko bozkario ia mingarri bat. Eduardo Matauko

Egundo sentitu gabeko poztasuna sentitu zuen. Patxi Zubizarreta

Lehenago **egundo** dastatu gabeko horditasuna sumatu zuen. Patxi Zubizarreta

3 (baino...ago-dun esaldietan)

Kaioak luma berriak luzituko dituzte eta **egundo** baino zaratatsuago ariko dira hegan janari bila kanpamentuaren gainean eta enbarkazioaren inguruan. Joseba Sarrionandia

Ama gelan **egundo** baino tristeago eta nekatuago zegoen artean. Joseba Sarrionandia

Egundo baino presenteago egon zen zuentzat urte haietan.Zenbat eta gehiago miazkatu emearen hankarte-popak, orduan eta beroago nengoen eta zakila **egundo** baino gogorrago neukan. Xabier Montoia

Baina zurrumurruak eten egin ziren eta **egundo** baino mantsoago entzun genituen Clemente Lopezen azalpenak. Joseba Sarrionandia

4 (superlatiboekin)

Horixe da **egundo** margolan batengatik ordaindu den preziorik altuena. Berria - Kultura

-Bahekien, Fulgor, lurraren gainean **egundo** izan den emakumerik ederrena dela hori? Juan Garzia

Mikel Garmendia hil da, euskarazko zineman eta antzerkigintzan **egundo** izan den aktorerik ezagunenetakoa. Berria - Harian

Ipuin harrigarria baita, eguzkiaren azpian **egundo** kontatu den harrigarrienetakoa. Iñaki Segurola

Egundo ezagutzen den pozoirik toxikoenetako bat botulina delarik, [...]. Edorta Agirre

5 (esaldi interjekziodunetan)

Egundo horrelakorik! Jose Morales

Gizaki baten gorputza taxutzen duten geneak euli baten gorputza eratzen dutenak berak izatea, baina, **egundo** halakorik! Juan Garzia

Hamaika makurkeria entzundakoa naiz nire bizian, baina **egundo** horrelakorik! Mirentxu Larrañaga

-Egundo komunikazio malapartatu eta kaskarragorik! -esan zuen mutilak-. Mirentxu Larrañaga

Halako betetasunik **egundo**! Aitor Arana

6 ***egundoko*** *(orobat **ehundoko** g.er.) izlag* ikaragarria, berebizikoa.

Jurramendiz bestaldean, iskiluz erruz horniturik, **egundoko** armada bildu zen, Lizarrari erasotzeko prest. Txillardegi

Egundoko luxua New Yorken jende gehienak arropa etxetik kanpo garbitzen duela kontuan hartuta. Harkaitz Cano

Egundoko aukera, bai. Berria - Mundua

Kanpoan **egundoko** beroa dago. Edorta Jimenez

Egundoko azkura sudurrean eta eztarrian, mukiak litroka. Joxean Sagaztizabal

Egundoko oroimen baten jabe zen norbait, noski, ondorioztatu zuten. Jon Muñoz

Riesgok, zorionez, **egundoko** geldiketa egin zuen. Berria - Kirola

Bihar ordu honetan **egundoko** kazkabar-erauntsia bidaliko dut, Egiptoko historia osoan izan ez den bezalakoa. Jose Antonio Mujika

Itxura guztien arabera, **egundoko** etxekoandre puska omen du. Mirentxu Larrañaga

Han Morganek **egundoko** tramankulu xelebrea jarri zidan eskura, tridente antzeko zerbait. Joxean Sagaztizabal

Egundoko masailezurrek mastekatzean egindako hotsa zen hura. Karlos Zabala

Egundoko muturrekoa hartu eta taxia galdu dut. Harkaitz Cano

Patatak txorizoarekin, mundialak, **egundoko** platerkada ederra zerbitzatu zidan Ixabelek. Joxean Sagaztizabal

Egundoko bi obra erromantiko aurkeztu zizkigun Euskadiko gure orkestrak. Berria - Kultura

Zirkunstantzia astungarri bat, hamaikagarren mendean, bi kristau-gizarteen indar eta perspektiba erlatiboen bat-bateko, ustekabeko eta **egundoko** alderantzikatzea izan zen. Iñaki Mendiguren

-1995ean, Bartzelonan, izugarrizko ekaitzaldia: hildako bat eta **egundoko** kalte ustekabekoak. Pello Zabala

Egundokoa da! Karlos Zabala

7 (izenondo gisa)

Bizkar **egundokoa**, bizkarrezurraren konkor txikiak luzatu eta hegatsen hezur izpi zabalduetaraino marmol nabarraren itxura iluna hartzen duena. Karlos Zabala

Aurkariak ahultzeko ere **egundokoak** egin izan dira. Berria - Harian

Eta oraindik mistela falta, ikusten dudanez, nahasketa **egundokoa** egiteko. Iñaki Iñurrieta

Beroa, berriro ere, **egundokoa** zen Lisboan. Edorta Jimenez

-1978an, Ebroko uholde izugarriak, ibaiaren ingurunetan kalte **egundokoak**. Pello Zabala

Zilar zuriaren antzeko zerbait, **egundokoa**, atera zen makila magikoaren muturretik. Iñaki Mendiguren

11 gol sartu zituen sasoi hartan, horien artean bizpahiru **egundokoak**. Berria - Kirola

Nik beti ulertu izan dudanez, kontrarioari erraztasunak eman eta honek **egundokorik** egin gabe gauza handiak lortzea da internazional egite hori. Berria - Kirola

· Oraingoan, ordea, Lepic andreak **egundokoa** egin du. Itziar Otegi

Mukizapia sudurpean zuela sartu zen, **egundokoa** harrapatu zuela esanaz. Joxemari Urteaga

Ingelesez **egundokoak** bota eta orduan bai, orduan isildu egiten da putakume hori. Harkaitz Cano

Aireplanoak herri gainean jirabiraka, burdinazko enara erraldoiak, ilunak, astiro, ozen, eta kanpai hotsak **egundokoak** baino larriagoak. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina egundo (3); **da egundo** (9); **du egundo** (7); **dut egundo** (5); **dute egundo** (3); **egundo baino** (11); **egundo entzun** (3); **egundo ere** (9); **egundo ere ez** (3); **egundo ez** (55); **egundo ez bezalako** (5); **egundo ez da** (3); **egundo ez direla** (3); **egundo ez dut** (5); **egundo ez zuen** (6); **egundo ezagutu** (5); **egundo horrelakorik** (9); **egundo ikusi** (14); **egundo ikusi ez** (4); **egundo ikusi gabeko** (3); **egundo izan** (9); **egundo izan den** (3); **eta egundo** (11); **eta egundo ez** (4); **ez da egundo** (8); **ez du egundo** (6); **ez dut egundo** (5); **ez dute egundo** (3); **ez zen egundo** (8); **ez zuen egundo** (9); **halakorik egundo** (3); **nik egundo** (5); **zen egundo** (8); **zuen egundo** (9)

baina egundoko (4); **egundoko ahaleginak** (3); **egundoko ahaleginak egin** (3); **egundoko aldea** (3); **egundoko antza** (3); **egundoko arrakasta** (7); **egundoko aukera** (3); **egundoko beldurra** (3); **egundoko beroa** (4); **egundoko ekaitza** (5); **egundoko eragina** (5); **egundoko euri** (3); **egundoko ezustekoa** (6); **egundoko ezustekoa eman** (5); **egundoko garaipena** (3); **egundoko garaipena lortu** (3); **egundoko garrantzia** (3); **egundoko gogoa** (3); **egundoko hotza** (6); **egundoko hotza egiten** (6); **egundoko indarra** (4); **egundoko jendetza** (4); **egundoko jipoia** (3); **egundoko kazkabar** (3); **egundoko kolpea** (4); **egundoko lana** (3); **egundoko lanak** (5); **egundoko loreak** (3); **egundoko natura** (3); **egundoko parranda** (3); **egundoko partida** (4); **egundoko sustoa** (3); **egundoko uholdeak** (3); **egundoko ustekabea** (3); **egundoko zalaparta** (3); **egundoko zama** (3); **egundoko zarata** (6); **ere egundoko** (8); **eta egundoko** (48); **honek egundoko** (3); **horrek egundoko** (4); **zen egundoko** (3); **ziren egundoko** (3)

egundokoa baitzen (3); **egundokoa da** (8); **egundokoa izan** (10); **egundokoa izan behar** (3); **egundokoa izan zen** (5); **egundokoa zen** (12); **egundokoak esaten** (3); **eta egundokoak** (4)

---

egunero *(orobat **egonoro** g.er. eta **egonoroz** g.er.)* **1** *adlag* egun guztietan.

Egunero bisitatzen nau Hannak: ate bikoitz zurian kax-kax deitzen duenero izutzen naiz; Hanna beltzez jantzia, nire gela zurian sartzen ari. Joxe Austin Arrieta

Egunero jatordu bat egiteko zazpi ahaleginak egin behar dituzte. Gotzon Garate

Egunero 30.000 haur afrikar hiltzen dira kontinentean mendebaldean erraz sendatzen diren gaixotasunen ondorioz. Berria - Harian

Egunero trenak bete holandar gazte abiatzen dira Alemaniara lanera. Josu Zabaleta

Egunero joaten zen partida jokatzera. Arantxa Iturbe

Egunero ilusio handiarekin egiten dut lan. Berria - Kirola

Egunero zigarro bat gutxiago erretzen hasiko gara. Joan Mari Irigoien

Uda ala negu, **egunero**, gauza bera egiten zuen. Daniel Landart

Egunero, goiz eta arratsalde, tenpluan egon behar zuten Jauna ospatu eta goresteko. Elizen arteko biblia

Ni, aldiz, **egunero**, uda ala negu, iguzki ala euri, hotz ala bero, goizean eta arratsaldean, baietz bai!, promenaderat ateratzen nintzela. Filipe Bidart

Egunero, huts egin gabe, emango zaie zeruetako Jainkoari erre-opariak eskaintzeko behar duten guztia. Elizen arteko biblia

Saudi Arabia ekoizle nagusia **egunero** 2,5 milioi upel ekoiztearen aldekoa zen. Berria - Ekonomia

600.000 euroko bermea eta **egunero** polizia etxera joan beharra ez dutela legearen araberako justifikaziorik dio hirukoak. Berria - Euskal Herria

Egunero ez da gertatzen, baina berezko gertakaria da suzko bolak jaustea. Berria - Gaiak

Tiroak edota gudaren soinuak **egunero**, edozein lekutan entzuten dira. Berria - Mundua

Egunero entsalada eta kafea. Alberto Barandiaren

Istillaga, **egunero** ohi bezala, mostradore ertz-ertzean, hanka bat eskuinaldera eta bestea ezkerrera zabaldurik eseri zen. Pako Aristi

Egunero bezala gosalondoan izango diagu Oskotz komandantearen bisita. Txillardegi

Erredakzioa borbor zegoen, **egunero** bezala tenore horretan. Aingeru Epaltza

Umbe kafetegia jendez gainezka zegoen eguerdi hartan, **egunero** bezalaxe. Joxemari Iturralde

Uda ala negu, **egunero**, gauza bera egiten zuen. Daniel Landart

Denborak eta urruntasunak -elkar ikusi gabe joandako denbora, nahiz eta bata besteaz **egunero**, orduero oroitu- ez zuten ez bata ez bestea makurrarazi. Xabier Olarra

Egunero -gauero- zerbait inprobisatu behar da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gosaria: **egunero**, igande eta jai egunetan salbu, goizeko 9etan. Josu Zabaleta

Urtebete pasa neraman -*Borondatearen garaipena* filma ikusi nuenetik- **egunero** ordu bertsuan jaikitzen. Anjel Lertxundi

Eguzkia ez da **egunero** toki berean ateratzen izarrartean. Pello Salaburu

Eta bitxia zen; izan ere, **egunero** etortzen zen arren, **egunero** sumatzen zuen lehenbiziko aldiz, zeren **egunero** berria baitzen, edo halaxe iruditzen zitzaion berari bederen. Berria - Kultura

Zuek beti berandu -esaten zigun **egunero**, lelo bat bezala-. Bernardo Atxaga

Gure espeziearen bizitza kontserbatzeko eta gure desira asetzeko, zergatik baliatu behar ote dugu zikinkeriak husteko **egunero** erabiltzen dugun organo beraz? Ramon Saizarbitoria

Hantxe egoten ziren **egunero** hamar orduz. Gotzon Garate

Saudi Arabia ekoizle nagusia **egunero** 2,5 milioi upel ekoiztearen aldekoa zen. Berria - Ekonomia

Horregatik esaten zuen Frantziskok -eta egia frogatua da- perfekzio-bideari eutsi nahi diotenek **egunero** garbitu behar dutela beren burua, negar-malko ugari isuriz. Askoren artean

Zertarako joaten naiz **egunero** lanera? Jon Arretxe

Ongi etorri ere kasetariei eta egunkaria **egunero** egiten duten langile guziei. Herria

Ez zeukan janaria norentzat eginik, baina **egunero** pizten zuen sua, eta ahia edo zoparen bat prestatzen zuen berarentzat. Koro Navarro

Nire ardura **egunero** 8.000 karaktere idaztea zuan, eta orain arte horixe egin diat, sobera ere. Aingeru Epaltza

Ez ditut horrelakoak **egunero** egiten. Oskar Arana

Ia **egunero** ikusten dut. Oskar Arana

Lau bat ordu **egunero**. Harkaitz Cano

Gosariarekin batera garbiketa tresnak, lanbasa eta lejia ekartzen dizkidate **egunero**. Koldo Izagirre

Beti eguraldi berdintsua tokatzen zaio: halamoduzkoa, **egunero**. Pello Zabala

Nire anaia maiteak haserrealdi ikaragarriak harrapatzen zituen **egunero**. Pello Lizarralde

Ezin dut ulertu jendeak nolatan egin dezakeen horrelakorik, **egunero**. Mirentxu Larrañaga

Dirua itzultzen jarraitu genuen, eta **egunero** eta urduriago sentitzen nintzen. Xabier Olarra

2 *egunero-egunero*

Egunero-egunero lan eginez, etxera itzultzeko bezainbeste diru bilduko nuela esan zidan. Patxi Zubizarreta

Hogei urte zeramatzaat **egunero-egunero** eraikin tzar hori ikusten, hogei urte zehaztu nahian zergatik ez zaidan gustatzen. Anjel Lertxundi

Egunero-egunero, larunbatetan izan ezik, errabinoa Breslerren liburutegira joaten zen. Koro Navarro

Periodiko bat **egunero-egunero** kaleratu beharra ez da txantxetako kontua. Anjel Lertxundi

Lanean hamar ordu sartu, eta gero **egunero-egunero** bi ordu gimnasioan jo eta ke aritzea gogorra da oso. Berria - Kirola

Erreparatu diozu inoiz **egunero-egunero**, goizean goiz trena hartzen duzunean, aurrean egokitzen zaizun neska edo mutil horri? Javi Cillero

Kapsula ñimiño bat du, eta hortik **egunero-egunero** hormona kopuru txiki bat askatzen du, bost urtean! Luis Elberdin

Gerrak iraun zuen artean **egunero-egunero**, Europako bazter txikituren batera jauzi egingo nuen paraxutaz, gosez hiltzen ari ziren mutiko eta neskato galduak salbatzera. Oskar Arana

Iruditzen zaidak ez dela, **egunero-egunero**, batere gustagarria izango. Jesus Mari Mendizabal

Etengabe lanean ari zen telegrafoaz gain, Europako aldizkariak hasi ziren **egunero-egunero** atzerapenik gabe etortzen. Txillardegi

3 ***eguneroko*** *izlag* egunero gertatzen edo egiten dena. ik **eguneroko**.

Eguneroko garbiketak egin, arropa apaindu, ikasi, irakurri... Filipe Bidart

Hemen **eguneroko** gauzak aipatu ditut, bazterrean utzirik umeak euskaraz gehien erabiltzen dituen hitzak. Pello Salaburu

Kantarien **eguneroko** eginkizuna erregearen araudiak eta beste arau batzuek taxutzen zuten. Elizen arteko biblia

LABeko sindikalistak, **eguneroko** menua hartu eta gero, ordaintzen, eta gazte etorkinak, kafe bila. Berria - Harian

Eguneroko janaria, beraz, erregeak eman zion bere bizitza guztian. Elizen arteko biblia

Errukia eta karitatea eskatuz lortzen zuen **eguneroko** ogia Maddalenek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Izerdia aterata jango duzu **eguneroko** ogia. Jose Morales

Egia arrunta da hau, **eguneroko** egia bat, **eguneroko** ilusio batek igaro ezinezko maskara batez estaltzen duena. Josu Zabaleta

Eguneroko trajedia txikia. Arantxa Iturbe

Beste kontu bat da **eguneroko** jardunean zenbat erabiltzen den. Koldo Zuazo

Jende askoren **eguneroko** zeregin xeheetarako. Koldo Zuazo

Eguneroko arazoetan murgilduta. Luis Elberdin

Eguneroko bizitza hain astuna eta neketsua denez, elurraren etorrerak euforia eta liberazio sentimendua ekartzen du beti. Bernardo Atxaga

Guk gure **eguneroko** bizitzan erabiltzen dugun egutegia erromatarrek asmatutakoan oinarritzen da. Pello Salaburu

Emozio kontzeptua, **eguneroko** hizkuntzan "sentimenaren" edo "grinaren" antzekotzat hartu ohi dena, oso ongi definitu behar da. Josu Zabaleta

Ez baitzen itsutzen jende arruntaren **eguneroko** emozioekin. Xabier Olarra

Zalantza bat geratuko da behintzat beti laborategietan lortutako emaitzei buruz: ea zenbateraino diren aplikagarri **eguneroko** pertzepzio "normalerako". Josu Zabaleta

Euskara bere **eguneroko** ahozko zereginetan baizik erabiltzen ez duenak ere. Koldo Zuazo

Gaitzen kontrako **eguneroko** dietaz. Edorta Agirre

Harritzen nau **Eguneroko** Igarlea egunkariak oraindik ez ematea eraso horien guztien berri. Iñaki Mendiguren

Jendeak bizitza zelan bizi duen eta **eguneroko** hori bizitzeko kultura eta gizarte ezberdinen arabera jendea nola antolatzen den, horixe da antropologiak aztertzen duena. Ana Urkiza

Azken horietarik gehienak (%47), gainera, **eguneroko** bidaiak izaten dira, %17 asterokoak, %16 hilerokoak eta gainerako %23 bestelako maiztasuna duten bidaiak izaten dira. Berria - Euskal Herria

Eguneroko egunak! Patziku Perurena

4 (izenondo gisa)

Aita **egunerokoak** Aita sinbolikoaren rola jokatzen du, eta honengandik jasotzen du autoritatea maileguan. Joseba Zulaika

13 ordu eta 3 minutura luzatu du bere txango **egunerokoa**. Pello Zabala

Hori bai dela eraso **egunerokoa**, etengabea eta ikaragarri ankerra. Luis Elberdin

Niretzat gauza normala zen, **egunerokoa**, egunerokotasun horretan bizi nuen zerbait. Ana Urkiza

Eszena arruntak, **egunerokoak**. Iñaki Iñurrieta

Gizalege eta esker on arrunt **egunerokoak** ere hor daude. Irene Aldasoro

Hain **egunerokoa** den keinu horretan ez dago ezer harrigarririk. Anjel Lertxundi

Ekintza hauek guztiak, hain errazak, hain **egunerokoak** izanik ere, jasanezinak iruditu zitzaizkion. Jon Alonso

Beste egunetan baino lehenago irten zen lanetik eta 6. zenbakiko metroa, **egunerokoa**, hartu zuen. Iñaki Zabaleta

Hain **egunerokoa** zaiguna, hain ezaguna, bapatean bitxitzen zaigularik. Herria

Lanetik etxerakoan, edo gero ataurrean, saguxar **egunerokoak** nolamoduz zebiltzan ere ohartu nahiko zuen afalaurretik. Pello Zabala

Orduan ezetzean esandakoak egiazta ditzagun, eguzkiaren jira **egunerokoari** neurriak hartuz. Pello Zabala

Beti pentsatu dugu politika, hizki handiz, politikarien lana zela eta guri, hizki txikidun politika egitea zegokigula, hau da, gutariko bakoitzak, bere borroka **egunerokoaren** aitzina eramatea. Ana Urkiza

Egunkarietan **egunerokoa** da delinkuentziaren aipamena, eta Chavezekiko oposizioa kupidarik gabe ari da gaia haren aurka erabiltzen. Pako Aristi

5 (izen gisa)

Egunerokoa bizi nahi izaten bainuen nik, etorkizunaren peskizan ibili gabe. Joan Mari Irigoien

Baina **egunerokoak** agerian uzten du agintari politikoek enpresaburuei legea betearazteko duten gaitasun falta. Berria - Ekonomia

Hiriaren **egunerokoa** ondo neur dezaketen beste batzuk egunkari saltzaileak dira. Berria - Harian

Horiek baldintzatzen baitute Europako herritarren **egunerokoa** eta hazten baitituzte haien kezkak. Berria - Mundua

Batez ere, gure **egunerokoan** hainbeste eragiten digun indarkeria horri buruzko azterketan. Hasier Etxeberria

Legearen arabera, nagusiak Jean Marieren urratsak trabatu ez baldin bazituen, lankide zein nagusi-ttikiek **egunerokoa** infernu bilakarazten ziotela argi zegoen. Itxaro Borda

Egunerokoarekin aspertzen garenean eta asperraldia luzea denean, sortzen dira arazoak. Berria - Gaiak

Egunerokoaz gain, astean asteko batez bestekoa ateratzen genuen, hilean hilekoa eta lauhilekoan lauhilekoa. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

alde egunero (7); **aurrera egunero** (8); **baina egunero** (27); **bat egunero** (15); **batek egunero** (9); **bezala egunero** (5); **da egunero** (75); **da egunero gertatzen** (6); **dela egunero** (6); **dira egunero** (53); **ditu egunero** (30); **ditugu egunero** (7); **dituzte egunero** (23); **du egunero** (30); **dugu egunero** (11); **dut egunero** (7); **dute egunero** (25)

egunero agertzen (8); **egunero ari** (16); **egunero ari da** (5); **egunero ateratzen** (9); **egunero aurkeztu** (8); **egunero aurkeztu behar** (5); **egunero aurkitzen** (7); **egunero bat** (5); **egunero behar** (9); **egunero bere** (13); **egunero beste** (5); **egunero bezala** (52); **egunero bi** (25); **egunero bi milioi** (5); **egunero bisitatu** (6); **egunero bizi** (10); **egunero bost** (5); **egunero dago** (5); **egunero deitzen** (9); **egunero egin** (22); **egunero egin behar** (9); **egunero egingo** (7); **egunero egiten** (71); **egunero egiten dira** (6); **egunero egiten du** (6); **egunero egiten duen** (5); **egunero egunero** (151); **egunero elkarrekin** (5); **egunero ematen** (15); **egunero entrenatzen** (9); **egunero entzuten** (14); **egunero erabiltzen** (20); **egunero erabiltzen dugun** (5); **egunero erakusten** (6); **egunero eramaten** (5); **egunero errepikatzen** (6); **egunero ertzain** (5); **egunero esaten** (8); **egunero eskatzen** (6)

egunero eta (50); **egunero etorri** (6); **egunero etortzen** (29); **egunero etortzen zen** (8); **egunero ez** (13); **egunero gauza** (10); **egunero gauza bera** (5); **egunero gertatzen** (45); **egunero gertatzen da** (6); **egunero gertatzen den** (5); **egunero gertatzen diren** (6); **egunero geure** (5); **egunero gure** (6); **egunero hainbat** (5); **egunero hartu** (5); **egunero hartzen** (14); **egunero hasten** (5); **egunero hiltzen** (9); **egunero hiru** (12); **egunero hitz** (9); **egunero hitz egiten** (6); **egunero ibiltzen** (7); **egunero idatzi** (5); **egunero idazten** (6); **egunero idekia** (5); **egunero ikusi** (7); **egunero ikusten** (61); **egunero ikusten dugu** (8); **egunero irakurtzen** (8); **egunero izan** (9); **egunero izango** (11); **egunero izaten** (17); **egunero jasotzen** (5); **egunero jaten** (6); **egunero joan** (13); **egunero joaten** (46); **egunero joaten nintzen** (5); **egunero joaten zen** (15); **egunero joaten ziren** (6); **egunero jotzen** (11); **egunero kalean** (8); **egunero lan** (15); **egunero lanean** (7); **egunero lanera** (8); **egunero lau** (12); **egunero lau orduko** (5); **egunero legez** (9); **egunero milaka** (9); **egunero mundua** (5); **egunero ordu** (12); **egunero ordubete** (5); **egunero pairatzen** (5); **egunero pasatzen** (9); **egunero polizia** (5); **egunero sortzen** (8); **egunero sufritzen** (5); **egunero urratzen** (6); **egunero zer** (5); **egunero zortzi** (5)

ere egunero (18); **eta egunero** (147); **eta egunero egunero** (8); **eta egunero joaten** (8); **eta ia egunero** (9); **ez da egunero** (15); **ez dira egunero** (7); **ez egunero** (10); **genuen egunero** (5); **gero egunero** (7); **geroztik egunero** (5); **hau egunero** (5); **hiltzen dira egunero** (8); **hori egunero** (8); **horrela egunero** (6); **hura egunero** (5); **ia egunero**

(151); **ia egunero egiten** (9); **ia egunero joaten** (7); **ia ia egunero** (5); **joaten zen egunero** (5); **kasik egunero** (17); **naiz egunero** (10); **nik egunero** (11); **nintzen egunero** (6); **nuen egunero** (9); **zen egunero** (29); **ziren egunero** (19); **zituen egunero** (15); **zituzten egunero** (5); **zuen egunero** (23); **zuten egunero** (12)

bai eguneroko (5); **baina eguneroko** (17); **baita eguneroko** (8); **bat eguneroko** (5); **baten eguneroko** (8); **batez ere eguneroko** (5); **bere eguneroko** (49); **beren eguneroko** (28); **da eguneroko** (34); **da gure eguneroko** (6); **dela eguneroko** (5); **den eguneroko** (6); **dira eguneroko** (10); **du eguneroko** (16); **duen eguneroko** (6); **dugu eguneroko** (5); **dute eguneroko** (10); **edo eguneroko** (11)

eguneroko arazoak (8); **eguneroko arazoei** (7); **eguneroko bat** (15); **eguneroko bi** (5); **eguneroko bizia** (7); **eguneroko bizian** (36); **eguneroko bizimodu** (6); **eguneroko bizimodua** (21); **eguneroko bizimoduan** (31); **eguneroko bizimoduaren** (8); **eguneroko bizimoduari** (7); **eguneroko bizitza** (68); **eguneroko bizitzak** (7); **eguneroko bizitzako** (27); **eguneroko bizitzan** (133); **eguneroko bizitzan eta** (5); **eguneroko bizitzara** (8); **eguneroko bizitzarekin** (7); **eguneroko bizitzaren** (36); **eguneroko bizitzari** (15); **eguneroko bizitzatik** (11); **eguneroko borroka** (8); **eguneroko erre** (12); **eguneroko erre opari** (8); **eguneroko errealitatetik** (5); **eguneroko gauza** (25); **eguneroko gauzez** (7); **eguneroko harremanetan** (5); **eguneroko hau** (5); **eguneroko hizkera** (5); **eguneroko hizkeran** (5); **eguneroko hizkuntzan** (7); **eguneroko hori** (7); **eguneroko igarlea** (22); **eguneroko igarlea n** (5); **eguneroko istorioak** (6); **eguneroko jarduera** (7); **eguneroko jardueran** (10); **eguneroko jardun** (6); **eguneroko jarduna** (11); **eguneroko jardunean** (33); **eguneroko jardunetik** (6); **eguneroko joan** (5); **eguneroko kontu** (7); **eguneroko kontua** (25); **eguneroko kontua da** (9); **eguneroko kontuak** (9); **eguneroko lan** (15); **eguneroko lana** (30); **eguneroko lanak** (11); **eguneroko lanarekin** (7); **eguneroko lanaren** (5); **eguneroko lanari** (6); **eguneroko lanean** (34); **eguneroko legez** (5); **eguneroko martxa** (7); **eguneroko martxari** (5); **eguneroko ogi** (11); **eguneroko ogia** (35); **eguneroko prentsan** (6); **eguneroko urratsetan** (6); **eguneroko zereginetan** (5)

ene eguneroko (6); **ere eguneroko** (15); **eta eguneroko** (138); **eta eguneroko bizitza** (5); **eta eguneroko bizitzako** (5); **eta eguneroko bizitzan** (7); **eta eguneroko bizitzaren** (5); **euren eguneroko** (10); **ez eguneroko** (9); **geure eguneroko** (9); **gure eguneroko** (82); **gure eguneroko bizitza** (5); **gure eguneroko bizitzan** (18); **haren eguneroko** (7); **herritarren eguneroko** (9); **hori eguneroko** (7); **ia eguneroko** (6); **neure eguneroko** (8); **nire eguneroko** (18); **zen eguneroko** (8); **zion eguneroko** (7); **zuen eguneroko** (12)

bere egunerokoan (6); **egunerokoa da** (7); **egunerokoa izan** (5); **egunerokoak dira** (10); **egunerokoak diren** (6); **eta egunerokoa** (11); **eta egunerokoaren** (5); **ia egunerokoak** (5)

---

eguneroko *(orobat **egonorozko** g.er.)* **1** *iz* eguneroko gertaerak idazten diren liburu modukoa. ik **egunero 3**.

Nitasunaren literatura: autobiografia, **egunerokoak**, oroitzapenak, aitorkizunak... egotismoaren gela itxi eta itsua, lehendik ere bisitatu izan dudana, eta horrexek ematen dit beldurra. Xabier Mendiguren Elizegi

Amak ez dizu inoiz **egunerokoa** irakurri ala? Antton Olano

"Suizidioak hilketa herabetiak dira" idatzi zuen Cesare Pavesek *Bizitza lanbide* izeneko bere **egunerokoan**. Anjel Lertxundi

Elsbethek goizean oparitu zidan **egunerokoa** estreinatu nuen Goetheplatzen entzundakoak eta jendeak izandako erreakzio kartsuak kontatzeko. Anjel Lertxundi

-Nire **egunerokoaren** giltza duk hau. Anton Garikano

Han dago, apunte batzuen azpian, aurkitu nahi zuena, kolore horizta duen libreta bat: semeak idazten zuen **egunerokoa**. Pako Aristi

Ramon de Galarza, Sukarrieta batailoiko kapitana, Santoñan hasi zen **egunerokoa** idazten, eta Larrinagan jarraitu, 1938an Burgosko kartzelara eraman zuten arte. Jokin Urain

"Teresak hiru **eguneroko** idazten zituen", hasten zen eta esan nion zail iruditzen zitzaidala emakume baten konplexutasuna hobeto adieraz zezakeen beste esaldirik aurkitzea nobelaren hasiera gisa. Joxean Agirre

Eguneroko honetan gauza beldurgarrien oroitzapenak daudela esan nahi dut. Iñaki Mendiguren

Riddleren **egunerokoa** erakutsi zion eta nola aurkitu zuten kontatu zion. Iñaki Mendiguren

Harry duda-mudan egon zen, luma **egunerokoaren** gainean zuela. Iñaki Mendiguren

Han zetzan zabalik **eguneroko** beltz txiki bat, Harryk Myrtle Negartiren komunetan aurkitua. Iñaki Mendiguren

Bederatzi bat urte nituela, kalean erabiltzen ninduen neskatoak -amak arropa eta oihalen denda zeukan, eta han egiten zuen lan- opari berezi bat egin zidan: koadernotxo bat, granatea, giltza eta guztikoa; **eguneroko** bat. Ana Urkiza

Bere **eguneroko** pribatuan, gogor ekiten dio The London Times-etik abiaturiko "difamazio kanpainaren" aitzi. Iñigo Aranbarri

Zein da hiruretatik **eguneroko** intimoena? Joxean Agirre

Irekitzera ausartu gabe begiratu nituen apal okertuen sostengu gisa zituen gaztetako liburu zaharkituak, argazki albumak, institutuko apunteak eta **eguneroko** itxurako koaderno azal-lodiak. Joxean Agirre

Arantzazuko Behatokiko **egunerokoak**. Pello Zabala

2 egunkaria.

Euskaldunok geure hizkuntzan geneukan **eguneroko** bakarra itxi eta bertako arduradunak atxilo hartu zituzten. Berria - Harian

Laster itzuli zen Malfoy, **eguneroko**-zati baten antzeko zerbaitekin. Iñaki Mendiguren

Elizaren dotrina sozialaren zantzolaririk onena zen, halakoak ziren haren editorialak *El Dìa* **egunerokoan** zanpaketaren kontrako oporra jotzen genuen aldiro. Koldo Izagirre

---

egunerokotasun *(orobat **egonorokotasun** g.er. eta **egonorozkotasun** g.er.)* **1** *iz* egunerokoa denaren nolakotasuna.

Niretzat gauza normala zen, egunerokoa, **egunerokotasun** horretan bizi nuen zerbait. Ana Urkiza

Gauza asko egiten saiatu bazara ere, diferentea izaten ahaleginduta ere, **egunerokotasunak** jan ote zaituzten kezka sortu zaizu. Lourdes Oñederra

"Bizitza" deitzen diote batzuek **egunerokotasunari**. Joxerra Garzia

Ez naiz jabetu gatibutasunak ere bere **egunerokotasuna** daukala, eta are **egunerokotasun** gris batek osatzen duela funtsean egiazko gatibutasuna. Urtzi Urrutikoetxea

Egunez egun egin beharko duk borroka, jakinik **egunerokotasuna** dela, hain zuzen ere, amodioaren etsairik handiena. Joan Mari Irigoien

Gizaki orok du **egunerokotasuna** alarde betilunik gabe bizitzeko dohaina. Anjel Lertxundi

Ez da tristura normal bat; **egunerokotasunean** zurekin dagoen tristura bat da, ez da pasatzen. Berria - Gaiak

Egunerokotasunean finkatuko du biziraupen estrategia: eguneroko garbiketak egin, arropa apaindu, ikasi, irakurri... Filipe Bidart

Hölderlinek **egunerokotasunetik** ihes egiteko baliatzen zuen literatura. Anjel Lertxundi

Iban Zalduak **egunerokotasunetik** abiatuta irakurlea hunkitzeko duen abilidade aparta. Berria - Kultura

Beste gai batzuk ere bai, hala nola, **egunerokotasunaren** zama, erabakien prezioa edo ahulenganako elkartasuna. Ana Urkiza

101 gau, gaueko eta asteburuetako idazle bainaiz; 101 ariketa **egunerokotasunari** nortasuna emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lilura zena axolagabekeria bihurtu zuen **egunerokotasunaren** herdoilak. Anjel Lertxundi

Orri hauetan dagoena da bere garaiko **egunerokotasunaren** erradiografia eraginkorra. Josu Zabaleta

Egunerokotasunaren naufragioa, zurezko gure etxe kaxkarretan. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hori ere ez baita soluzio txarra, **egunerokotasun** aspergarriari aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

Eni gustatzen zait **egunerokotasun** banalenaz idaztea. Ana Urkiza

Hirugarren garaiko kontaketa bihurri eta nahasiek obsesio bakar batera bultzatu zuen Akinosuke: **egunerokotasun** hutseko gaiak bakarrik kontatzera, errealitate gordinaren itxura zuten fantasia errepikakorretara. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egunerokotasun dorpetik ihes egiteko molderik egokiena eta seguruena depresioa zela. Itxaro Borda

Auzolagun eta senitarte elkartasun batek du bata eta besteen gutxien-gutxieneko **egunerokotasuna** nola edo hala ziurtatzen. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egunerokotasuna eta (3); **egunerokotasunari aurre** (3); **egunerokotasunean ez** (3); **egunerokotasunetik ihes** (3); **eta egunerokotasuna** (6); **eta egunerokotasunak** (4); **eta egunerokotasunaren** (5); **eta egunerokotasunean** (5); **euren egunerokotasuna** (3)

egungoratu, egungora(tu), egungoratzen da/du *ad* eguneratu.

Elizak, beraz, nahi ditu ospatu orain bertan ere, tenpora egun aspaldiko hauek, baina noski, **egungoratuta**, egokituta. Pello Zabala

---

egungotu, egungo(tu), egungotzen da/du *ad* egungo bihurtu, eguneratu.

Liturgia berritu eta **egungotzen** ere saiatu zen: gregoriar kantu bildumak sustatu eta elizako kantaera bideratu zuen. Pello Zabala

---

egunka *adlag* eguna neurri hartuz.

Ez da agian hemengo Posta Ipar Ameriketakoaren idurikoa bilakatuko, han ardura beranta ez baita **egunka** kondatzen bainan asteka edo berdin hilabeteka. Herria

Iñaki Etxeleku eta Xarlo Etxezaharreta **egunka** hamar euroko isunaren pagatzera behartuak dira, aldiz Gorka Torre eta Jean Noel Etxeberrik hogei euro ordaindu beharko dute egun bakoitz. Herria

Ia urte erdia eman baitzuen Arlenek etxera etortzeke; Big Lanniek **egunka** kontatzen zuen denbora. Mirentxu Larrañaga

Diru gizona zen, lukurrerua, txerpolariei maileguak **egunka** egiten zizkiena eta orgatilak errentan ematen, eskandaluzko korrituak eskatuz. Karlos Zabala

---

egunkal *adlag* egunka.

Xiberoak horri bürüz emaiten dü bere ikusmoldea: nola asmatzen den urtekal, hilabetekal, astekal eta **egunkal**. Herria

---

egunkari **1** *iz* egunero argitaratzen den informazio aldizkaria.

Gero, **egunkaria** zabaldu dut. Anjel Lertxundi

Poltsikotik **egunkari** bat atera eta zabaldu zuen. Koldo Biguri

Egunkaria tolestu eta mahai gainean utzi zuen. Lopez de Arana

Egunkaria luzatu zidan. Fernando Rey

Egunkariarekin agur keinua egin nion. Edorta Jimenez

Egunkarietako berriak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lepo ukaldi arin batez bihurtu nituen begiak, **egunkariaren** lehen orrialdeko titular beti bezain luzeetara. Aingeru Epaltza

Kazetaria zen eta naziak goratzeko idazten zituen bere **egunkariaren** editorialak. Xabier Montoia

Oroituko zarete Mona dela atzoko **egunkarietako** titularrak bereganatu zituen neska. Fernando Rey

Egunkarietako argazkietatik ezagunak zitzaizkion haietako batzuen aurpegiak. Juan Luis Zabala

Egunkarietako gehigarri koloretsuetan. Xabier Montoia

Egunkariek ergelkeriak eta ahoberokeriak baizik ez zituzten esaten. Josu Zabaleta

Gau osoa emana nuen pentsatzen zer esanen zuten nire herrian **egunkarietako** ebakinetan nire izena izar handienen ondoan ikusten zutenean. Fernando Rey

Arthur Sulzberger **egunkariaren** argitaratzaileak, baina, zitazioa ezeztatzen ahaleginduko direla esan zuen atzo. Berria - Gaiak

Gara **egunkariaren** urtekaria daramat, inprentatik atera berria. Pako Aristi

Batzarra *Berria* **egunkariaren** zehaztasunak ezagutzetik abiatu zen. Berria - Harian

Egunkaria eta ogia beti leku berean erosten dituenean hasten da norbera leku horretara egokitzen, bertako sentitzen. Harkaitz Cano

Alemaniako **egunkari** batek kaleratu du albistea. Berria - Ekonomia

Egunkariek Burtsako Erregea deitzen zioten. Lopez de Arana

-Ikusi duk **egunkaria**? Unai Iturriaga

Gaur goizean irakurri dut **egunkarian**. Lopez de Arana

Goiz hartan **egunkaria** goitik behera irakurri zuen Martak eta gero sukaldean zeuden botila eta lata guztietako etiketak ere bai. Harkaitz Cano

Egun hauetan **egunkariak** ez dira metroan irakurtzen, parkeetan baizik. Lutxo Egia

Egunkariari gainbegiratua botatzeko adina denbora eman zion bidaiak. Unai Iturriaga

Egunkaria zekarren eskuetan zabalik, eta hantxe erakutsi zigun berria. Inazio Mujika Iraola

Gainera, **egunkariak** ez zekarrek ezertxo ere. Anton Garikano

Barkamena eskatu zion parrokoak, ez zekiela **egunkariak** jartzen zuena besterik. Inazio Mujika Iraola

Norbait ospetsua edo garrantzitsua izan behar du, noski, **egunkarian** etortzeko. Pako Aristi

Estatubatuarren %45ek **egunkarien** edukietan duten uste ona oso txikia edo hutsaren hurrengoa omen da. Iñigo Aranbarri

Hala ere, egun batean, han, oihanaren erdian, ez irrati ez **egunkari** ez ezer, munduaren berri aste batzuez izan gabe, lan egiteari utzi ziotean. Xabier Olarra

Egunkari edo astekari batean zer irakurtzen duzu lehenik? Menane Oxandabaratz

Iralka eta *Jakin* aldizkarietan eta *Gara* **egunkarian** artikuluak argitaratu ditu. *Fayetteville Observer* **egunkariak** ohikoa ez zen gutun bat zekarren 1862ko maiatzaren 19an, Long Grabs berriemaileak Camp Magnumetik bidalia: [...]. Askoren artean

Kazetak eta **egunkariak** eta, plazaratu zituen, gehienak debekatuak izan zirenak. Menane Oxandabaratz

Le Soir Beljikako **egunkariak** aurreratu zuen berria. Berria - Ekonomia

Flandriako *De Standaard* **egunkariari** eskainitako elkarrizketan Eddy Merckxek Lance Armstrong jo du faborito aurtengo Tourra irabazteko. Berria - Kirola

Egunkarietan egunerokoa da delinkuentziaren aipamena, eta Chavezekiko oposizioa kupidarik gabe ari da gaia haren aurka erabiltzen. Pako Aristi

Azkena, *El Correo* **egunkariak** filtratutako beste txosten bat izan da. Berria - Ekonomia

Hala eta guztiz ere, ez zen falta izan jenderik burua berotu, eta **egunkarietara** gutunak idaztera bultzatu zuena. Ramon Saizarbitoria

Figura hori bada beste **egunkari** batzuetan ere, *press ombudsman* deitzen da, irakurlearen defendatzailea. Iñigo Aranbarri

Irakurri dudana kontatu diat, baina kontuan har ezak **egunkari** hori alderdikoia dela. Jon Muñoz

Karrerako azken kurtsoko ikaslea, Ana praktiketan genuen **egunkarian** joan den uztailetik. Aingeru Epaltza

Egunkariak etengabe ari dira inbasioari buruz gauzak idazten, eta jendea erotzen ari dira. Josu Zabaleta

Egunkari guztiek jakintzat eman zuten atentatua komunistek egina zela. Anjel Lertxundi

Esan dizudan guztia ez duzu **egunkarian** argitara emango, ezta? Lopez de Arana

Horretaz idatzi behar baitzuen **egunkariaren** igandeko ale berezirako. Lopez de Arana

Ahozko kultura desagertzera doala, eta idatzia, printzipioz **egunkariena**, gailenduko dela. Pako Aristi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere zorroan miatu, **egunkari** zimurtu bat atera, eta orrialde jakin batean zabaldu zuen. Jon Muñoz

El Liberal Guipuzcoano, **"egunkari** politiko, filosofiko, literario eta merkataritzakoa", ateratzen da. Askoren artean

Jules jaunak **egunkari** arinak irakurtzen zituen. Karlos Zabala

Oraintxe bertan zabaldu dute berria **egunkari** elektronikoek. Iban Zaldua

Atzo *La Tribune* **egunkari** ekonomikoak kaleratu zuenez. Berria - Ekonomia

Asteartean The Sun **egunkari** sentsazionalistak aurreratu zituen ondorioek. Berria - Mundua

Leone **egunkari** klandestino baten buru zen eta etxetik kanpo egoten zen beti. Fernando Rey

Urte hartan berean *Libération* **egunkari** berria plazaratzeko egitasmoan sartu zen buru belarri. Monika Etxebarria

Ezinezkoa izango baitzen hain denbora gutxian euskarazko **egunkari** nazional bat kalean izatea. Berria - Euskal Herria

Liburua, izengoitiz izenpetua argitaratu zena, *La Voz de Guipúzcoa* **egunkari** errepublikanoan argitaratu zituen tokiko historiako kronika batzuen emaitza zen. Askoren artean

The New Masses **egunkari** ezkertiarrean idazten hasi zen. Lopez de Arana

Fernandok **egunkari** frankista baterako idatzi zinan. Lutxo Egia

Egunkari xiita bat itxi dute, erresistentzia sustatzen duelakoan. Berria - Mundua

Nola hain **egunkari** luze eta zabal batek ekar dezake hain informazio eskasa? Lutxo Egia

Egunkari atzeratuen pila ondoan. Iñaki Iñurrieta

Egunkaria-ren irakurketa amaitu zuenean, erdarazko **egunkari** batzuk erosi zituen liburu-dendan. Juan Luis Zabala

Euskarazko **egunkari** baten 0 zenbakia, 1929an. Berria - Harian

Irrati ttipi bat ere erosi ahal izan nuen, bederen kanpoko berrien entzuteko, eta frantses **egunkari** baten harpidetza ere bai. Filipe Bidart

Thomas, galesezko **egunkari** bat sortzeko egitasmoaren zuzendariak. Berria - Mundua

Donostiaren gerezi gozoan, oraintxe aste eta erdi, bertako **egunkari** bat leitzen tabernako barran. Iñigo Aranbarri

Bere sorterriko **egunkaria** erosi eta goitik hasi eta beheraino irakurtzen zuen. Fernando Rey

Irakurriko duzu "Lapur finak" izeneko artikulua igandeko **egunkarian**, Mr Goldstein. Lopez de Arana

'Goizeko **egunkari** batzuk', dio, 'asteleheneko *L'Etoile*ko artikulu erabakigarriaz mintzatzen dira gaur'. Koro Navarro

Errepublikaren aldeko **egunkariek** ahalegin horretan izaniko bozkarioa aldarrikatu zuten. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ea egia zen **egunkari**-albiste batetik atera zuela kontua. **Egunkari** formaturik egokiena. Bernardo Atxaga

Congok poltsikotik fardel bat atera zuen, **egunkari**-orriez bildua. Lopez de Arana

Egunkari-ale bat zekarren parrokoak egun hartan ere. Inazio Mujika Iraola

Egunkari-paperean bildutako fardel bat atera zuen. Lopez de Arana

Bi neskak **egunkari**-paperezko txanoak eginak zituzten euren uda-kapelak estaltzearren. Lopez de Arana

Han eta hemen bildu ditugun aldizkari orri, **egunkari** zati eta zernahi generotako paper mordoa. Jokin Urain

Ez hango berriak bakarrik, **egunkari** ebakinak ere bidaltzen dizkidate. Harkaitz Cano

Egunkari txatalak ebakitzen ditut gertakari ezohikoen orrialdetik, eta berri esanguratsuak sailkatzen ditut karpeta urdin batean. Javi Cillero

Kaxoi batetik albuma atera zuen, argazkiz eta **egunkari** puskaz osaturikoa. Josu Landa

Kugler jaunaren **egunkari** hornidura geroz eta hobea da. Josu Zabaleta

Atzera utzi zituen, ez berak esaten duen bezain errotik hala ere, kafe etxeetara eta garagardotegietara bisitak eta bertan biltzen ziren literatur lagunarteen bilerak, baita **egunkari** erredakzioetara maiz joatea ere. Josu Zabaleta

Inork sekula **egunkari**-zuzendari baten aurrean egin behar ez duena egin baitzuen: ideiak eman. Anjel Lertxundi

Egunkari-kronikalari batek istorio bat kokatzen du eta handik aurrera inork ere ez daki zein den egiazkoagoa: notarioaren deskribapena ala kronikalariak asmatutako pasadizoa. Koldo Biguri

Oso ahapeka, ordu arte ez bezalako zuhurtziaz, hitz egin zidan Umbertok **egunkari** banatzaileari buruz: [...]. Anjel Lertxundi

Titularrak irakurtzen ari zela, Galderrek **egunkari**-saltzaile pakistandar baten begiak sumatu zituen bizkarrean, aizkora baten gisa. Lutxo Egia

Azaldu zen Peppone, besapean **egunkari** sorta handi bat zuela. Koldo Biguri

Kordeletik askatu ez duten **egunkari** fardel pilatua bezala. Harkaitz Cano

Saltzen dudan laugarren **egunkari** paketea da. Koldo Biguri

Espaloian gelditu zen, arrosa koloreko **egunkari**-pilo baten ondoan, arnasestuka. Lopez de Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

The Wall Street Journal finantza **egunkari** ospetsuaren kazetari talde batek. Iñaki Heras

Izugarri atsegin nuen kirol-**egunkari** eta aldizkariei gainbegiratu bat ematea. Pedro Alberdi

Film erridikulu hura ematen ari ziren bitartean goitik behera errepasatu zuen Marca kirol **egunkaria**. Joxemari Iturralde

Atzo ere esku ezezagun zital batek irain latza idatzi zuen gure orma-**egunkarian**. Koldo Biguri

Zu atzo tabako dendara joan zinenean, ez zinen ba pasatuko horma-**egunkari** horren aurretik? Koldo Biguri

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Izan ere, **egunkari**-aldizkarietako denbora-pasetako orrialdeetan ez da zaila aurkitzea. Iñaki Arranz

6 egunkaria egiten den lokala eta enpresa.

Egunkarietako erredakzioetan, baita indar ekonomiko eskasenekoetan ere, etengabe jasotzen dituzte kazetariek mundu osoko berriak eta irudiak, milaka eta milaka egunero. Juan Luis Zabala

Egunkarietako errotatiba zaharrak galerada inprimatu berria bertzeekin pilatzerakoan gisako asotsa ateratzen zuen, zapla!, ukaldi bakoitzean. Aingeru Epaltza

Ez baitakit noiz deituko hauten **egunkariaren** ofizinetara, lanean bertan hasteko. Txillardegi

Lehenago, **egunkarian** lan egiten zuenean, Tomasi "Kondea" erraten genion erredakzioan. Aingeru Epaltza

Alexander Marriot, haren lankidea **egunkarian**, Ingalaterran zen ordurako. Lutxo Egia

Egunkari batean lan egiten zuen, gauez ikasten zuen kazetaria izateko. Jon Muñoz

-Bihar asteko jaieguna diat **egunkarian**, eta semearekin noak amaren herrira -egia erditan. Aingeru Epaltza

7 egunerokoa.

Moja baten **egunkaria** zen, ohartxo labur eta hitz gutxikoen sorta bat, ospitaleko bizitzari buruzko irudipenak jasotzen zituena, bospasei hilabetetakoak. Josu Zabaleta

Egunkari bat idatziko dut, dietario baten idazketa-modua hartuko dit idatziko dudanak? Anjel Lertxundi

Gauean honela idatzi zuen bere **egunkarian**: "Berri zehatzak jaso ondoren, ondorioa atera daiteke gure familian hiru belaunaldiz ez dela sexu harremanik izan". Josu Zabaleta

Idazmahaira hurbildu, tiradera ireki eta belus horiz koadernaturiko **egunkaria** bilatu nian. Xabier Olarra

Hark klimaz, lurraz, bertakoen ohitura eta manerez dioen guztia bat dator gaur egun Afrikako kosta honetan ikusten denarekin; irudi luke gure nabigatzaile baten **egunkaria** dela. Iñaki Iñurrieta

Beste aberri batekoak ziren, antzinakoak, **egunkari** pertsonalak modan jarri baino lehenagokoak. Bernardo Atxaga

Hil horretako 28an, 1941eko urtarrilaz geroztik egunero egiten duen legez, Lehendakariak bere **egunkari** pertsonalean idatzi du. Edorta Jimenez

Pausoz pauso konta daitekeen esperientzia da: pauso horiei buruzko **egunkari** apokrifo baterako aukera ere ematen du. Anjel Lertxundi

Ezkutuko **egunkariaren** antzeko zerbait bihurtzen da, oso pertsonala, guri buruz mintzo dena. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arabi egunkari (5); **atzo egunkari** (6); **bat egunkari** (6); **batek egunkari** (6); **bere egunkari** (5); **beste egunkari** (15); **beste egunkari bat** (6); **bi egunkari** (15); **da egunkari** (18); **da egunkari bat** (5); **den egunkari** (14); **dio egunkari** (5); **du egunkari** (12); **duen egunkari** (11); **edo egunkari** (6)

egunkari arabiarrari (6); **egunkari asko** (5); **egunkari bakarra** (19); **egunkari bat** (124); **egunkari bat atera** (6); **egunkari bat eta** (5); **egunkari bat hartu** (6); **egunkari bat irakurtzen** (5); **egunkari bat ixtea** (5); **egunkari batean** (69); **egunkari batean irakurri** (9); **egunkari batek** (69); **egunkari bateko** (16); **egunkari baten** (37); **egunkari batetik** (7); **egunkari bati** (18); **egunkari batzuetan** (8); **egunkari batzuk** (9); **egunkari berri** (10); **egunkari berria** (18); **egunkari berriak** (5); **egunkari berriaren** (7); **egunkari britainiarrak** (5); **egunkari edo** (10); **egunkari eta** (62); **egunkari eta aldizkari** (7); **egunkari eta aldizkarietan** (5); **egunkari eta telebistetan** (5); **egunkari ezkutua** (13); **egunkari gehienek** (5); **egunkari guztiak** (8); **egunkari guztiek** (11); **egunkari guztietan** (14); **egunkari hau** (21); **egunkari honek** (23); **egunkari honen** (12); **egunkari honetako** (6); **egunkari honetan** (40); **egunkari honetan bertan** (12); **egunkari honi** (14); **egunkari honi adierazi** (6); **egunkari hori** (13); **egunkari horiek** (5); **egunkari horrek** (13); **egunkari horren** (14); **egunkari horren arabera** (6); **egunkari horretan** (5); **egunkari hura** (6); **egunkari nazional** (8); **egunkari nazional bat** (5); **egunkari orri** (5); **egunkari orriak** (12); **egunkari orrien** (5); **egunkari saltzaileak** (6); **egunkari zahar** (5); **egunkari zaharrak** (6); **egunkari zati** (12); **egunkari zatia** (8); **egunkari zatiak** (7)

espainiako egunkari (8); **eta egunkari** (70); **euskal egunkari** (7); **euskarazko egunkari** (34); **euskarazko egunkari bakarra** (6); **euskarazko egunkari bat** (8); **frantziako egunkari** (5); **kirol egunkari** (12); **leturiaren egunkari** (13); **leturiaren egunkari ezkutua** (12); **nire egunkari** (5); **nuen egunkari** (5); **times egunkari** (5); **zen egunkari** (14); **ziren egunkari** (6); **zituen egunkari** (6); **zuen egunkari** (23); **zuten egunkari** (7)

arabako egunkaria (5); **auzia egunkaria** (5); **baina egunkaria** (12); **baita egunkaria** (7); **batean egunkaria** (5); **bere egunkaria** (13); **berria egunkaria** (18); **da egunkaria** (12); **den egunkaria** (5); **dio egunkaria** (5); **dira egunkaria** (6); **donostia egunkaria** (10); **donostia euskaldunon egunkaria** (6); **du egunkaria** (26); **dugu egunkaria** (9); **dut egunkaria** (7); **dute egunkaria** (12); **egin egunkaria** (8)

egunkaria argitaratzen (6); **egunkaria aurrera** (16); **egunkaria bera** (9); **egunkaria da** (11); **egunkaria dela** (6); **egunkaria edo** (6); **egunkaria erakutsi** (6); **egunkaria ere** (11); **egunkaria erosi** (25); **egunkaria erosi eta** (7); **egunkaria eskuetan** (6); **egunkaria eta** (38); **egunkaria ez** (8); **egunkaria hartu** (16); **egunkaria idazten** (6); **egunkaria irakurri** (11); **egunkaria irakurtzea** (5); **egunkaria irakurtzeko** (9); **egunkaria irakurtzen** (51); **egunkaria irakurtzen ari** (19); **egunkaria irakurtzen zuen** (6); **egunkaria irakurtzera** (5); **egunkaria mahai** (5); **egunkaria tolestu** (9); **egunkaria tolestu eta** (6); **egunkaria utzi** (10); **egunkaria zabaldu** (14); **egunkaria zabaldu zuen** (6)

ere egunkaria (11); **eta egunkaria** (134); **eta egunkaria irakurtzen** (5); **euskarazko egunkaria** (13); **gara egunkaria** (5); **gizonak egunkaria** (6); **hitza egunkaria** (5); **igandeko egunkaria** (5); **lehen egunkaria** (5); **llumen egunkaria** (5); **naiz egunkaria** (5); **nire egunkaria** (9); **nuen egunkaria** (7); **otamendi egunkaria** (5); **torrealdai egunkaria** (5); **uria egunkaria** (26); **uria egunkaria ko** (20); **uria egunkaria sako** (5); **uria euskaldunon egunkaria** (6); **zen egunkaria** (23); **zen euskaldunon egunkaria** (5); **zion egunkaria** (5); **zuen egunkaria** (30); **zuten egunkaria** (9)

abc egunkariak (6); **berria egunkariak** (16); **bi egunkariak** (6); **correo egunkariak** (8); **de navarra egunkariak** (6); **de noticias egunkariak** (5); **deia egunkariak** (5); **dio egunkariak** (7); **diren egunkariak** (6); **duten egunkariak** (5); **egunkariak argitaratu** (7); **egunkariak argitaratutako** (16); **egunkariak atzo** (71); **egunkariak atzo argitara** (7); **egunkariak atzo argitaratu** (14); **egunkariak atzo argitaratutako** (5); **egunkariak atzo kaleratu** (5); **egunkariak atzo zabaldu** (9); **egunkariak atzoko** (5); **egunkariak berak** (5); **egunkariak bere** (7); **egunkariak dioenez** (5); **egunkariak eman** (8); **egunkariak ere** (9); **egunkariak eta** (35); **egunkariak ez** (14); **egunkariak irakurri** (6); **egunkariak irakurtzeko** (8); **egunkariak irakurtzen** (18); **egunkariak itxi** (9); **egunkariak ixten** (5); **egunkariak jakinarazi** (16); **egunkariak jakinarazi duenez** (10); **egunkariak kaleratu** (8); **egunkariak kaleratu zuenez** (5); **egunkariak kaleratutako** (9); **egunkariak saltzen** (8); **egunkariak zabaldu** (9); **egunkariak zabaldu zuenez** (5); **egunkariak zioen** (5); **el correo egunkariak** (8); **el mundo egunkariak** (21); **el pais egunkariak** (5); **eta egunkariak** (30); **eta egunkariak irakurtzen** (5); **euskaldunon egunkariak** (7); **euskarazko egunkariak** (5); **figaro egunkariak** (6); **financial times egunkariak** (6); **gara egunkariak** (12); **guardian egunkariak** (14); **haaretz egunkariak** (20); **haaretz egunkariak atzo** (6); **hitza egunkariak** (5); **independent egunkariak** (5); **journal egunkariak** (7); **jyllands posten egunkariak** (9); **kirol egunkariak** (8); **la vanguardia egunkariak** (5); **le monde egunkariak** (16); **liberation egunkariak** (6); **maariv egunkariak** (6); **monde egunkariak** (16); **monde egunkariak atzo** (7); **mundo egunkariak** (21); **navarra egunkariak** (6); **noticias egunkariak** (5); **pais egunkariak** (5); **post egunkariak** (23); **posten egunkariak** (9); **street journal egunkariak** (7); **the guardian egunkariak** (14); **the times egunkariak** (15); **times egunkariak** (58); **times egunkariak atzo** (8); **times egunkariak jakinarazi** (5); **vanguardia egunkariak** (5); **washington post egunkariak** (20); **york times egunkariak** (28); **zituen egunkariak** (5); **zuen egunkariak** (9)

bere egunkarian (10); **berria egunkarian** (16); **dut egunkarian** (6); **egin egunkarian** (8); **egunkarian agertu** (5); **egunkarian argitaratu** (13); **egunkarian argitaratu zen** (5); **egunkarian argitaratu zuen** (5); **egunkarian argitaratutako** (11); **egunkarian atzo** (11); **egunkarian bertan** (6); **egunkarian ere** (5); **egunkarian eta** (8); **egunkarian hasi** (6); **egunkarian idatzi** (8); **egunkarian ikusi** (5); **egunkarian irakurri** (21); **egunkarian irakurri zuen** (5); **el mundo egunkarian** (7); **el pais egunkarian** (7); **eta egunkarian** (5); **euskaldunon egunkarian** (18); **figaro egunkarian** (8); **gara egunkarian** (16); **irakurri dut egunkarian** (5); **le figaro egunkarian** (7); **le monde egunkarian** (7); **monde egunkarian** (7); **mundo egunkarian** (7); **nire egunkarian** (5); **pais egunkarian** (7); **post egunkarian** (12); **times egunkarian** (16); **treneko egunkarian** (9); **washington post egunkarian** (7); **york times egunkarian** (9); **zen egunkarian** (6)

berria egunkariaren (13); **de navarra egunkariaren** (5); **egin egunkariaren** (6); **egunkariaren alde** (27); **egunkariaren alde elkartearen** (10); **egunkariaren aldeko** (7); **egunkariaren ale** (9); **egunkariaren ale bat** (5); **egunkariaren arabera** (89); **egunkariaren atzoko** (6); **egunkariaren egoitza** (5); **egunkariaren gainean** (5); **egunkariaren itxiera** (15); **egunkariaren itxieraren** (6); **egunkariaren kontrako** (5); **egunkariaren lehen** (7); **el mundo egunkariaren** (6); **eta egunkariaren** (13); **euskarazko egunkariaren** (8); **haaretz egunkariaren** (12); **haaretz egunkariaren arabera** (8); **le monde egunkariaren** (7); **monde egunkariaren** (7); **monde egunkariaren arabera** (5); **mundo egunkariaren** (6); **navarra egunkariaren** (5); **post egunkariaren** (9); **post egunkariaren arabera** (5); **times egunkariaren** (21); **times egunkariaren arabera** (17); **washington post egunkariaren** (5); **york times egunkariaren** (10)

berria egunkariari (7); **egunkariari adierazi** (11); **egunkariari adierazi zionez** (5); **egunkariari egindako** (14); **egunkariari egindako adierazpenetan** (10); **egunkariari eginiko** (5); **egunkariari emandako** (11); **egunkariari emandako elkarrizketan** (9); **egunkariari eskainitako** (16); **egunkariari eskainitako elkarrizketa** (5); **egunkariari eskainitako elkarrizketan** (11); **egunkariari jarraiki** (5); **eta egunkariari** (5); **guardian egunkariari** (5); **haaretz egunkariari** (9); **the guardian egunkariari** (5); **times egunkariari** (19); **york times egunkariari** (8)

aldizkari eta egunkarietan (5); **argitaratzen diren egunkarien** (15); **biharamuneko egunkarietan** (5); **da egunkarietan** (5); **diren egunkarien** (17); **egunkariek diotenez** (5); **egunkariek ere** (6); **egunkariek eta** (5); **egunkariek ez** (10); **egunkarien arabera** (5); **egunkarien artean** (7); **egunkarien bidez** (5); **egunkarien eta** (5); **egunkarietako lehen** (8); **egunkarietan agertu** (5); **egunkarietan agertzen** (9); **egunkarietan ere** (6); **egunkarietan eta** (15); **egunkarietan ez** (6); **egunkarietan irakurri** (5); **egunotako egunkariek** (6); **eta egunkariek** (17); **eta egunkarien** (6); **eta egunkarietako** (12); **eta egunkarietan** (22); **gutxituetako egunkarien** (5); **hizkuntza gutxituetako egunkarien** (5); **midaseko egunkarien** (5); **zen egunkarietan** (6)

---

egunkaritxo *iz* egunkari xumea.

Autodefentsarako bere azken tresna hamabi orriko **egunkaritxo** bat da: *El Correo del Presidente*. Pako Aristi

Hantxe jarraitzen du, geldi, burua eskuetan bermaturik, begizta urdinaz loturiko **egunkaritxoari** begira, zeinak lakre urdinean zigilua baitu, hura ere urdina. Xabier Olarra

---

egunkarizale *izond* egunkarien zalea dena.

Ez da Agirre **egunkarizalea** batzar horren oharra idatzi duen bakarra. Edorta Jimenez

---

eguno ik **egundo**.

---

egunon ik **egun**[1].

---

egunonka *adlag* egun on esanaz. ik **egun**[1] **4a**.

Egunkariaren ale zaharren piloetan barrena eta oraino isilik dauden makinen artetik iraganez, idazgela eta metalezko eskaileretan goiti egin du bulegoetara, **egunonka** eskaini zaizkion eskuak tinkatuz. Berria - Kultura

---

egunoro ik **egunero**.

---

egunoroko ik **egunero**.

---

egunorokotasun ik **egunerokotasun**.

egunoroz ik **egunero**.

egunorozkotasun ik **egunerokotasun**.

egunpasa ik **egun[1] 4b**.

egunsenti **1** *iz* eguna argitzen hasten den unea. ik **egunabar**.

Herritarrek arratseko zazpiak eta **egunsentiko** seiak artean etxean geratu beharko dute. Berria - Harian

Egunsentia gaua ebakitzera datorren labana da. Pako Aristi

Egunsentia urratu baino lehenago. Txillardegi

Egunsentia urratzear zegoenean iritsi zen. Agustin Otsoa

Ulia aldetik **egunsentia** sumatzen zelarik, goizeko lehenengo mezara zihoazen neskame goiztarrei begiratzen nien gelatik. Txillardegi

Egunsentia zen ordurako. Fernando Rey

Hala, haren oinetan etzan zen **egunsentia** arte. Jose Antonio Mujika

Hire ama **egunsentia** baino lehen jaikitzen zuan. Juan Garzia

Oskar ez da inoiz **egunsentia** baino lehen itzultzen. Jon Arretxe

Zuhaitzen artean, **egunsentia** iragartzen duen brisara dabil. Xabier Olarra

Ardandegietan, ondoko kaleen amaieran, gas argiontziak itzaltzen ari ziren banan-banan, izarrak **egunsentian** legez. Karlos Zabala

Egunsentiko argi oraindik kolorerik gabearen bibrazioa. Jon Alonso

Zintzoen bidea **egunsentiko** argia bezalakoa da, eguna zabaldu ahala, gero eta argiagoa. Elizen arteko biblia

Ekin zioten guduari eta borrokan jardun zuten **egunsentitik** ilunabarreraino. Elizen arteko biblia

Jainkoa da izar-multzoak sortu dituena, iluna **egunsenti** eta eguna gau beltz bihurtzen duena. Elizen arteko biblia

Naturak eman dezakeenak baino mila bider zorrotzago den ikusmenak baizik ezin desberdinduko zuenean, ekialdean, gaua eta **egunsentia** bereizten dituen hasierako diferentzia, almuedanoa iratzarri zen. Jon Alonso

Egunsentiak gela barrena ñabardura urdinez margotu zuen. Felipe Juaristi

Harresien kolorea gris espektraletik zurira aldatu zen, **egunsentiak** apenas gorritutako zurira. Agustin Otsoa

Egunsentiaren lehen argiak baino lehentxeago. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egunsentiaren argitasunak ezustean harrapatu zuen Xerazade eta honek hitz egiteari utzi zion. Monika Etxebarria

Gero itxi egin zuen ahoa eta erdi ireki begiak, eta **egunsentiaren** argitasun motela islatu zen haietan. Juan Garzia

Leihoa irekitzera zihoala ikusi zuten **egunsentiaren** esne-argia urratzen zetorren distira biziago hura. Pako Aristi

Egunsentiaren argi grisean, bihozgabeturik eta hotzak dardarka. Agustin Otsoa

Gau osoan diharduela kantari **egunsentiaren** hegaztiak. Juan Garzia

Cincinnatiko kaleetan hainbeste aldiz galduta, eguerdia arte ez zen heldu, nahiz **egunsentian** abiatu zen. Anton Garikano

Isiltasun izugarri hartan, ihesi zihoazen minutuen soinu goibelak kulunkaturik, bizidun ororengandik urrun, bost pertsona -bi emakume eta hiru gizon- gauaren, **egunsentiaren** eta exekuzioaren zain zeuden. Jose Morales

Arratsaldea zen eta **egunsentian** atereak ginen. Koro Navarro

Egunsentian fusilatua. Lopez de Arana

Harekin ezkondu zelarik, gauean hartaz jabetu, mintza urratu, eta **egunsentian** hilarazi egin zuen. Patxi Zubizarreta

Biharamunean ez zen **egunsentirik** izan, eta Konpainia Grisa Mordorko Ekaitzaren ilunpetan sartu zen, hilkorren begientzat desagertuz; baina Hildakoak atzetik zituzten. Agustin Otsoa

Egunsentia ikustean beti esaten zioat neure buruari: beharbada gaur... Lopez de Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Iluntasunaren erdian dirdai egin, eta eguna sortu zen; **egunsenti** argitsuak haren klartasunaz jabetzen dira. Patxi Zubizarreta

Dorre honetatik kanpai hauetxek egingo diote agur iraultza proletarioaren **egunsenti** distiratsuari. Koldo Biguri

Egunsenti gorriaren argitan ezpata eskuan haiengana oldartzen ari zen gizon bat ikusi eta Memo zela ulertu zuen. Fernando Rey

Lanparako olioa ahitzear, ordurako gelaz jabetua zen **egunsenti** goibel euritsua. Anjel Lertxundi

Eguna argitzen ari zen: **egunsenti** hotza gertu zegoen berriro ere, eta lanbro izoztu grisak inguratzen ari zitzaizkien. Agustin Otsoa

Hotzaren hotzez moretutako kaleetan gas-lanparek dar-dar egin zuten une batez, gero **egunsenti** hitsean itzali ziren. Lopez de Arana

Egunsenti makurra, egun zoriontsua eta urrezko arrastiria! berotik hotzerako aldaketa bortitza zela, antzigarrezko **egunsentiak** zirela. Agustin Otsoa

Egunsenti bakarzalearen isiltasunak larritu egiten du. Antton Olano

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zure argirantz joko dute herriek, zure **egunsenti**-distirarantz erregeek. Elizen arteko biblia

Igokunde Halako batean, **egunsenti**-oskorria! Joxe Austin Arrieta

Egun bateko **egunsenti** aldean. Mirentxu Larrañaga

Lehendabizi sirena hotsak entzuten ziren, luze, ozen, **egunsenti** aurreko isiltasuna urratzen. Jon Maia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Biharamun **egunsentian**, irten zen oihal bila hirira joateko asmoz. Askoren artean

Aspaldi ez bezalako astelehen **egunsenti** ederra. Koldo Izagirre

5 irud/hed

Ongiaren **egunsentia** zabaltzen denean, haurrak eta zaharrak hil egiten dira, odola ibaika isurtzen da. Felipe Juaristi

Zibilizazioaren **egunsentia** baino lehen, afrasiar estepa (Sahara eta arabiar basamortua) ongi ureztaturiko belardia zen. Iñaki Mendiguren

Aro modernoaren **egunsentian** dukerri eta konderriak probintzia multzo batean eraldatzeko. Iban Zaldua

Aro modernoaren **egunsentian** gaztelau eta frantziar erresumen manupean erortzeko prest dagoen oro. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aro modernoaren egunsentian (3); **bihar egunsentian** (3); **biharamun egunsentian** (3); **da egunsenti** (4); **da egunsentia** (4); **egunsenti aldera** (7); **egunsenti aurreko** (3); **egunsenti berri** (4); **egunsenti eta** (3); **egunsenti hartan** (4); **egunsentia arte** (12); **egunsentia baino** (26); **egunsentia baino lehen** (17); **egunsentia bezain** (4); **egunsentia ikusteko** (3); **egunsentia iritsi** (3); **egunsentia izan** (3); **egunsentia urratu** (3); **egunsentia zen** (14); **egunsentia zen eta** (3); **egunsentiak bezala** (3); **egunsentian jaiki** (4); **egunsentian jaiki eta** (4); **egunsentiarekin batera** (13); **egunsentiaren argi** (3); **egunsentiaren argitasunak ezustean** (18); **egunsentiaren aurretik** (4); **egunsentiaren lehen** (5); **egunsentiaren zain** (5); **egunsentiaz geroztik** (4); **egunsentiko argi** (8); **egunsentiko argia** (4); **egunsentiko lehen** (3); **egunsentiko une** (3); **egunsentira arte** (25); **egunsentitik ilunabarrera** (8); **eta egunsenti** (5); **eta egunsentia** (13); **eta egunsentian** (8); **eta egunsentiaren** (3); **eta egunsentiko** (7); **ia**

egunsentia (3); **modernoaren egunsentian** (3); **zen egunsentia** (3)

---

eguntegi *iz* egutegia.

Hain zuzen **eguntegietan** agertzen da laburpena: Fet.nat. eta hortakotz badira hala deitzen direnak, bereziki itsas-haraindiko ugarteetan. Herria

---

eguntsu (noiz kasuko esaldietan gutxigorabeheratasuna markatzeko)

Gerra amaitu eta berehala, zu jaio zinen **eguntsuetan**, Ingo hil zen. Anjel Lertxundi

Ez dakit egun hartan justu, baina **eguntsu** haietan hasi nintzen sentitzen ordutik utzi ez nauten zorabiotxoak. Anjel Lertxundi

---

eguntto *iz* eguntxoa.

Gau luzeen arteko **egunttoak**, urteko laburrenak dira. Pello Zabala

Parisen hilko naiz ekaitz egun batez / jadanik oroitzapenean dudan **eguntto** batean. Harkaitz Cano

Leku hura baratzez eta belardiz osatutakoa izan zela harik eta **eguntto** batez Industria Uhin batek irentsi zuen arte. Bernardo Atxaga

---

eguntxo *iz adkor* eguna.

Esan biezaio **eguntxo** batzuk itxaroteko. Juan Garzia

---

egur *iz* **1** enbor edo adar zatia, eskuarki su egiteko erabiltzen dena; horrelako zatien multzoa.

Iparraldean diferentzia egiten da **egurra** (surako egurra) eta zuraren artean; hau taulak egiteko lantzen da. Xipri Arbelbide

Egur bat aizkoraz jotzean, bere begia jo eta erditik ebaki zuen. Askoren artean

Biharko finaleko **egurrak** Joxemiel Peñagarikanok plazaratuko ditu, finalean ariko den aizkolarietako batek, alegia. Berria - Kirola

Aizkolariak gonbidatuta daude **egurrak** aztertzera joan daitezen. Berria - Kirola

Izan ere, gerta daiteke aizkolari bat ez izatea berezko aizkolaria, baina bai indartsua, eta irabaz dezake hiru **egurreko** proban. Berria - Kirola

Bigarren proba: ligaxka 45 ontzako enborra ebakitzen (puntu 1 **egur** bakoitzeko). Berria - Kirola

Botako al dut beste **egur** bat sutara? Xabier Mendiguren Elizegi

Alokairua 6 shilling; ogia 4 shilling; [...] **egurra** kalefakziorako 0,4; esan nahi baita: 21,43 shilling. Pablo Sastre

Suak **egurra** pizten eta erretzen duenean, **egurrak** suaren izate berbera bereganatzen du. Joan Mari Lekuona

Burko bezala **egur** edo harri bat erabiliz. Askoren artean

Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek **egur** batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Elizen arteko biblia

Suarekin ere ez da pizten, eta bera bakarrik berez ez da erretzen, ez bada, harria balitz bezala, karea egiteko labean beste **egur** batzuekin batera erretzen. Santiago Iruretagoiena

Gero, pila bakoitzeko **egurra** zakutan sartzen zuen. Anjel Lertxundi

Hiriko ateetatik sartzean, emakume alargun bat ikusi zuen **egurra** biltzen. Elizen arteko biblia

Sua itzaltzen hasten zenean, Gülbahar altxatu eta besaldi eder bat **egur** ekartzen zuen. Fernando Rey

Normalean egongelan egoten da, beheko suaren ondoan; **egurra** txikitzeko erabiltzen da. Eskarne Mujika

Gero, dardaraz, suari **egurra** eman eta berotzeko eseri zen. Josu Zabaleta

Egurrak xutik eman, ote mulkoak azpian sartuz. Herria

Egur bereko ezpala lez, odol berekoak biok! Harkaitz Cano

Puskatu zuten gurdia **egurra** egiteko, eta behiak **egurraren** gainean jarri zituzten, Jaunari erre-oparia eskaintzeko. Elizen arteko biblia

Nolako **egurra**, halako sua. Patxi Zubizarreta

Itzalita zegoela zirudien **egurrak**, bat-batean zarta egin eta txinparta mordo bat botatzen duen bezala. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Batzuen ustez, zuhaitza beherapenean moztu behar da, **egur** ona izan nahi baduzu kerik gabe erretzeko, edo zur egokia altzariak lantzeko. Pello Salaburu

Nire besoa baino **egur** lodiago batetik baitzegoen brankatik lotuta. Josu Zabaleta

Egur iharrak eskuz puskatzean ateratzen duen antzeko hotsaz. Askoren artean

Bazterretan bildu belar metatxo baten gainean, bi **egur** idor bermatu zituen Martizek eta gizonetarik batek sua eman zion. Itxaro Borda

Izan ere, **egur** hezeari hau egiten badiote, zer ez ote iharrari? Elizen arteko biblia

Eskua ziztu bizian sutara eraman, eta **egur** gartsu bat atera zuen. Patxi Zubizarreta

Burdina ihia bezalakoa da harentzat, brontzea **egur** ustela. Elizen arteko biblia

Sua mokorrez pizteak ere, **egur** sendokotea behar dela sutan. Pello Zabala

Egur bustiaren usaina sakon darion hesi hura. Monika Etxebarria

Gurina saldu nahi nuke, zerriak hazi, negurako **egurra** pilatu gure etxearen teilatupean... Anjel Lertxundi

Hara eta hona mugitzen ziren lasterka, behera izaren bila, gora sutarako **egurraren** bila. Julen Gabiria

Sutarako **egurrik** ez, eta aulkia erre! Pello Zabala

Ekarri berehala erretzeko **egurra**, eta jarri inguruan eta azpian, eta busti olioarekin. Agustin Otsoa

Nolako **egurra**, halako sua. Patxi Zubizarreta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esnetegiaren saihetsean atzeman buxka eta **egur** ezpalak metatzen zituzten. Itxaro Borda

Ezkerretan, teilaz estalitako etxola hura, tresnategi eta **egur**-gordeleku izana. Txillardegi

Orduantxe azaldu zen Fionn mendi aldetik, **egur** besakada bat zekarrela. Joanes Urkixo

Behin, bestetan bezala, itzuleran zetorren **egur** karga batekin eta emakume batek erosi nahi izan zion. Askoren artean

Egur txondorra gerturik dago ahukua etorri dene-koxe. Gotzon Garate

Gazteluko zaintzailea dorrearen gailurrean lo zegoen, horma-bularrean bertan jarria zegoen **egur**-pila baten gainean etzanda. Askoren artean

Lotu zuten txakurra gurutzeari, eman zioten su **egur**-metari, eta txakurraren ulu mingarrien artean, osaba Joanikoten boza aditu zen: [...]. Joan Mari Irigoien

Aukera bezate horiek [zekor] bat, zatikatu eta ezar bezate **egur**-sortaren gainean, baina surik eman gabe. Elizen arteko biblia

Asiriako erregearentzat aspalditik gertu dago erreleku sakon eta zabala, **egur**-pila handia. Elizen arteko biblia

Biharamunean, atsoak, bizkarrean zeraman **egur**-zamarekin ezinda, begiak jaso zituen zerurantz. Anjel Lertxundi

Errotarria erabiltzera behartu dituzte mutilak, **egur**-zamapean lur jo dute gaztetxoek. Elizen arteko biblia

Horien idoloak basoan ebakitako **egur**-puskak dira, artisauaren eskuak zizelez landuak. Elizen arteko biblia

Zoritxarrekoa zu, **egur**-puska bati: "Esna zaitez!" eta harri mutuari: "Jaiki!" esaten diezun hori! Elizen arteko biblia

Biharamun goizean, Paxhurrek askatu egin zuen Jeremias **egur**-zepotik. Elizen arteko biblia

Negu iragan berritik aurrera ez baitzen hainbesterainoko **egur**-eskaerarik izaten. Anjel Lertxundi

Urte guziz bezala **egur** mozte horiek herriko oihanetan antolatuak dira galdea egiten dutenentzat. Herria

Egur moztearen klok klok klok lasaiak gogorarazi zion Kito lanean ari zela. Anton Garikano

Gero, **egur** txikitzeak eragindako ezpalak jaso zituen bazter batean. su-bajurako **egur** bila. Anjel Lertxundi

Ez dute landan **egur** bila edo basoetan egurketan ibili beharrik izango. Elizen arteko biblia

Zerrategiak bi sarrera zituen, Adrianen eta Josebaren etxeetara zihoana eta kamioiek **egur** garraioan erabiltzen zutena. Bernardo Atxaga

Egur txikitzen ari ziren bi soldaduren aizkora-kolpeak baino ez ziren entzuten. Anjel Lertxundi

Bazen baserritarrik, sua itzalitakoan, **egur**-erre puskak, erdi ikatz egindakoak, soroetan lurperatuko zituenik. Pello Zabala

Atzo **egur** enborrak ateratzen hasi ziren eta ezkutuko bidaiariaren gorpua ere lehorreratu ahal izan zuten. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kanpalekutik atera egingo du leku garbi batera, gantzen errautsa botatzen den lekura, alegia, eta su **egurraren** gainean erreko; errauts-lekuan erreko da. Elizen arteko biblia

Neskak orduan aloe **egur** zati bat atera zuen, eta ezpal bat kendurik, sutara bota zuen. Patxi Zubizarreta

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Bizpahiru tatuaje besondoetan, **egur**-mozle atorra lodiak eta bera baino zabalagoak ziren galtzak soinean. Itxaro Borda

6 zura.

Eraikuntzak adreilua, harria eta **egurra** konbinatzen ditu; elementu formal gotiko, errenazentista eta barrokoak ageri dira nonahi. Anjel Lertxundi

Kaobarena da gaur egun «**egurrik** preziatuena». Berria - Gaiak

CCOOk gogor salatu du «**egurraren** sektorea hitzarmenik gabe utziko duen patronalaren setakeria». Berria - Ekonomia

Bada gaitz zahar bat, giza bihotza aspaldidanik jo eta hondatzen duena, sitsak **egurra** edo herdoilak burdina nola. Joxerra Garzia

Egur dezente eman zioten Etxeberritarren aroztegian. Anjel Lertxundi

Moduren bat balego **egur** hori erraz eramateko Erromara, abantaila handiak ekarriko lizkioke eraikuntzari. Santiago Iruretagoiena

Efesoko tenpluan Dianaren irudia eta sabaiko kasetoiak **egur** horrekin eginda daude. Santiago Iruretagoiena

Pabiloia osaba Juanek zaldientzat prestatutako eraikina zen, dena **egurrean** egindakoa. Bernardo Atxaga

Kabinetean eta logelan ukuilu-usaina zegoen, lurreko **egurren** junturetatik zetorrena. Koro Navarro

7 (izenondo eta izenlagunekin)

Telebistaren ordez, hura baino handiagoa zen irrati bat jarri zuen, **egur** lakatuzkoa. Iban Zaldua

Gezi bat egin zuen mihuraren **egur** bigunarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sade Adou, gure ametsetako emakumea, **egur** gurian tailaturiko jainkosa. Eider Rodriguez

Sukaldetik haranzkoan, lasaiago zapaltzen duzu lurreko **egur** zaharra, zarata ateratzeko beldurrik gabe. Lourdes Oñederra

Egongela besaulki bi eta sofa bat zen eta milaka tapete eta piano bat eta **egur** iluna eta erloju bat, barrokoa. Unai Elorriaga

Egur margotuzko indiar batek esku bat jasoa zuen kale-kantoian. Lopez de Arana

Egur beltzezko giderra sentitzen dut. Monika Etxebarria

Egur zurizko mahai txarreko tiraderan. Karlos Zabala

Haren izena zegoen idatzirik **egur** urreztatuzko markoan, erretratuaren azpian. Monika Etxebarria

Mihiztatutako **egurrez** egingo da oinarria, eta haren gainean brontzez egindako kutxa bat jartzen da. Santiago Iruretagoiena

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egur industriaren lan hitzarmenaren negoziazioa bertan behera utzi dute Gipuzkoako patronalek, eraikuntza sektorearen grebak eragin egiten diela argudiatuta. Berria - Ekonomia

Zurgindegian denetariko **egur**-motak eta zurezko ontziak zeuden gorderik. Jose Morales

Eskaileretan behera ttipi-ttapa oinutsik labainduz bezala, **egur** oholaren intziriak zakur zaindaria esnatu beldur. Anton Garikano

Bera han aritu ez balitz sutako egurra mozten, Sethek **egur**-oholetan zabalduko zituen alabaren muinak. Anton Garikano

Burdina-xafla her doilduz eta **egur**-oholezko hesiz babestutako biltegi, ontziola eta eskabetxetegiak zeuden ezker-eskuin. Anjel Lertxundi

Gure **egur** biltegia hemendik hurbil dago, aldameneko kale batean. Urtzi Urrutikoetxea

Horregatik **egur**-mota horrekin egiten diren lanek betiko iraupena izaten dute. Santiago Iruretagoiena

Ateak, ixterakoan, **egur**-hots lehorra egiten du. Anjel Lertxundi

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urkamendia egiteko ez omen dago gaztaina-**egurra** bezalakorik. Karlos Linazasoro

Izai **egur** merkeenean zizelkatu hilkutxaren ildoan Graxi eta Pierra ageri ziren bilduak. Itxaro Borda

Istant batez, pago **egur** errearen usaina iritsi zaio nonbaitetik. Pello Lizarralde

Hango tximinian, sagarrondo **egurra** errez piztu zuen sua. Felipe Juaristi

Erdiko zehar-**egurrak** alderik alde erditik zeharkatuko ditu oholak. Elizen arteko biblia

Egin arkazi-zurezko bost zehar-**egur** egoitzaren alde bateko oholentzat. Elizen arteko biblia

10 haizezko musika tresnez mintzatuz, zurezkoa dena.

Orkestako soka grabeetan hasi, **egurrera** pasa eta metaletan tema pomposo aurkeztuz hasten da obra hau. Berria - Kultura

Orkestra oso ondo hasi zen, gehienbat **egurraren** aurkezpenean (Vodnik-en tema jokoso-maltzurrean) baina gerora desoreka asko nabaritu ziren. Berria - Kultura

Harizko, **egurrezko**, eta metalezkoen arteko trinkotasunaren gainetik Sata biolin jotzaileak, Nabarmendu behar ditugu **egurrezkoen** bakarlaritzak eta harizkoen bateratasuna. Berria - Kultura

Petrassi-ren *Tre pre sette* izan zen lanik sendoena: haizezko **egurrezkoentzat** egindako tarazea moduko pieza entzun genuen. Berria - Kultura

Haize **egurraren** sekzioko bakarlari guztiak ondo baino hobeto abestu zuten mugimendu honetako tema berezia. Berria - Kultura

Sokaren soinu ederra, haize-**egurraren** epeltasuna eta metalen [...] elegantzia. Berria - Kultura

11 *adkor* jipoia, zigorra, eskuarki fisikoa.

Poliziek ez dute musurik banatzen, **egurra** baizik. Jon Arretxe

Poliziek borrekin **egurra** emanez eta pilotak jaurtiz erantzun zuten. Berria - Euskal Herria

Burutsuaren ezpainetan hitz zuhurrak; burugabearen bizkarrari, eman **egurra**! Elizen arteko biblia

Uste baldin badugu galderak egiteak bakarrik, konponbideak zein diren esan gabe, ez dela gauza ona, eta hori **egurra** ematea besterik ez dela, sentitzen dut ez bat etortzea. Pello Salaburu

Atzo arratsaldetik etxeak miatzen aritu dituk han eta hemen, **egurra** ematen, jendea atxilotzen. edonor atxilo eramaten zuten laster asko, susmo hutsarekin sarri, eta **egurra** ematen zioten, nola gainera, eta urtetarako espetxeratu gero. Anjel Lertxundi

Tamalez, Sanzek PPren **egur** emailearen rola hartu du, eta alderdi horren interesak jarraitzen ditu. Berria - Euskal Herria

Hari **egurra** itzultzeko eskaintzen nion neure burua, Giselak uzten bazidan kaskezurra txikituko nion. Fernando Rey

Egiptoko agintari torturatzaileek **egurra** emateari ez diogu beldur, eta zin egiten dugu tirano hauek hil dituzten martiriak mendekatuko ditugula. Berria - Mundua

-Jesus -esan zuen On Camillok-, eutsi gogor, **egurra** banatzen hasiko naiz eta! Koldo Biguri

Bizkarra berotu arte **egurra** hartzea nahiago luke, amari gustua egitea baino. Itziar Otegi

Panizoren hilketa ere xanpainarekin ospatu zuten askok eta askok, ez baitziren bat eta bi haren **egurra** jasotakoak. Juan Kruz Igerabide

Ondo zekien berarengana zihoan morroi handi hark opari mingarria zekarkiona: **egurra**. Paddy Rekalde

Gure estiloa gogorra, **egurra** emotekoa zan, bizitasuna eta indarra ezartekoa. Xabier Amuriza

Endesaren (- %0,14) kasuan salmentak nagusitu ziren eta Iberiak ere **egurra** jaso zuen. Berria - Ekonomia

Ingurumenari ematen ari garen **egurrarekin**, gu itsu-itsuan goaz amildegira. Berria - Euskal Herria

Orduan ikusiko duzu zelako **egurra** emango dizun jaunak, ikusiko duzu. Julen Gabiria

Euskaltzaindiako Txomin Agirre saria irabazi nuen eta uste nuen ez nintzela gaizki ari; baina kritikak kristoren **egurra** eman zidan. Berria - Kultura

Egurra Pinotxori! Aritz Gorrotxategi

12 gaitasuna.

-Boxeorako **egurra** heukan. Paddy Rekalde

13 *egur egin*

Abendoan, **egik egur** eta lo! Pello Zabala

Basoan omen zen **egur egiten**. Gotzon Garate

Teilatuak **egur egiteko** aizkoraren burua gogorarazten zuen, oso garaia eta zorrotza baitzen. Jose Morales

Lurralde horren jabe ziren, mankomunitatean, Baigorri, Luzaide, Erro eta Baztango baleak, haiek zituzten lekuko mozkinen baliatzeko arauak finkatzen, nolako baldintzetan ziren herri horietako behiak, ardiak eta zerriak bazketara joaiten, norainoko **egur egiteko** dretxoa zuten. Michel Oronoz

Bazen beste sibasritar bat, behin esklabo bat **egur egiten** ikuste hutsarekin, izerdi patsetan hasi zena. Jon Muñoz

Egur egiten ari zelarik. Herria

14 *(suari, sura)* ***egur gehiago bota*** *irud/hed*

Raul Villar CCOOko ordezkariak «suari **egur** gehiago» botatzea egotzi dio zuzendaritzari. Berria - Ekonomia

Doktrina ez ezik tonu absolutistek, alferrik itzularazi nahi baikaituzte XVIII edo XIX. mendera, ez dute suari **egurra** bota baino egiten. Joxe Azurmendi

Konponketaren aukerak ixten eta gatazkaren sura **egur** gehiago botatzen aritu direla. Berria - Harian

15 *egur ikatz* egurrarekin egiten den ikatza.

Uholdeek bereziki kaltetzen dute Haiti, **egur ikatza** egiteko herrialdeko zuhaitzen %90 moztu baitituzte. Berria - Mundua

Besteak beste, Luzaide izan da **egur ikatz** anitz egiten zen tokia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bestelakoa zen gar hura, lehen alkoholaren erregai puruaz sutu eta orain, berriz, **egur-ikatzaren** indar organikoaz erreko balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Egur-ikatzezko sutontzi baten inguruan, eserleku baxu eta bigunak kokatu zituzten. Agustin Otsoa

Habibik te-ontzia hartu zuen; patiora irten, iturriko uretan pasatu te-ontzia, **egur-ikatza** erantsi kanunari, eta ura sartu zuen te-ontzian. Jon Muñoz

16 *egur lan* *(orobat* ***egurlan*** *g.er.)* arotz lana.

Teilatupeko **egur lanek** dir-dir egiten zuten, burdinurtuzko egituretako farfaila beltzen artean. Karlos Zabala

Peter ez da igo ganbaran nirekin egotera; teilatupera joan da zuzenean, eta **egur lanetan** hasi da. Josu Zabaleta

Zurgizena arbolari berari kendu ondoren, barruko **egur-lanetarako** erabiltzen da, eta ohol horri "sapinea" esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

Jatetxera iritsi ziren, zeinaren **egur lan** urreztatuak lehenbiziko solairuraino igotzen baitziren. Karlos Zabala

Eta halaxe, **egur lanean** aritu zen dena utzi zuen arte. Iñigo Aranbarri

Zurgizena arbolari berari kendu ondoren, barruko **egur-lanetarako** erabiltzen da, eta ohol horri "sapinea" esaten zaio. Santiago Iruretagoiena

17 *egurra egin*

Zuhaitzak moztu eta **egurra egin**. **Egurra egiten** zuten anaiei, debekatu egiten zien zuhaitza orpotik ebakitzea, kimu berritzeko aukera izan zezan. Jose Morales

Puskatu zuten gurdia **egurra egiteko**, eta behiak egurraren gainean jarri zituzten, Jaunari erre-oparia eskaintzeko. Elizen arteko biblia

Badira bi egurgile behartsu, bat zaharra eta bestea gaztea, egunero basora joan behar izaten dutenak **egurra egin**, garraiatu, eta bildutako egur hura salduz zer irabazi eta zer jan izateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Finlandiaren menpeko samien lurraldeetan dauden basoetan **egurra egiteko** baimena eman edo ez erabakitzeko batzordea eratu zuen Helsinkiko gobernuak. Berria - Mundua

18 *egurretara* egur bila.

Hilabete geroago amona berriro **egurretara** atera zen, inoiz baino makurtuago, pauso bakoitzean eroriz. Pako Aristi

Behin batez, **egurretara** joanda, karga bizkar gainean hartuta, bide luzea egin beharra egokitu zitzaion egurkari zahar bati. Imanol Zurutuza

Egurretara joana zen egun batez, Ali Babak zaldi gainean arrapaladan zetorren jende multzo bat begiztatu zuen. Patxi Zubizarreta

19 *egurrezko* zurezkoa.

Oraintxe sartu da lehena: gizon zahar bat, praka barrenak narras eginda, **egurrezko** maleta bat eskuan. Javi Cillero

Arotza eta **egurrezko** idoloak. Elizen arteko biblia

Egurrezko tresnak eta burdinazko kateak erortzen ziren zorura. Karlos Zabala

Egurrezko piezatxoak dagokien tokiraino bultzatzea, hori da orain axola duena. Joxe Austin Arrieta

Etxe-zulo ilun ospela zuen, **egurrezko** eskailera higatua eta guzti. Javi Cillero

Bere oinen mugimendua entzun zezakeen **egurrezko** zoruaren gainean oinez. Harkaitz Cano

Egurrezko zutabeak eta gapirioak ageri, etxeak badu halako "baztandar" kutsua. Txillardegi

Zelai handi horren aldamenean beste futbol zelai txikiago bat zegoen **egurrezko** porteria zaharrekin. Joseba Sarrionandia

Txuspok zuzen-zuzenean jo du pianorantz, eta triskatu antzean duen **egurrezko** tapakia atabalatzen hasi da. Harkaitz Cano

Eskuin-ezkerretan **egurrezko** gurutzeak ageri ziren ugari, aldirietako bide bazterrean tente ipinita. Karlos Zabala

Lucas eta Mariaren etxetik hilerriraino **egurrezko** hogeita bederatzi balkoi zeuden. Unai Elorriaga

Italiako Itsas Armadak 240 etorkin zeraman 15 metroko luzerako **egurrezko** ontzi bat atzeman zuen Lampedusako uhartera heltzear zegoenean. Berria - Mundua

Urumea gurutzatzeko **egurrezko** zubi luze bat dago, edo txalupak bestela, emakumeek eramanak. Koldo Izagirre

Zarpeatuak **egurrezko** trenkaden gainean egin behar direnean. Santiago Iruretagoiena

Eguzki beteak dirdiraka zeuzkan banderaren gain-gaineko **egurrezko** arranoaren moko eta atzapar kobreztatuak. Anjel Lertxundi

Orain sinestezina iruditzen zait hain tren zaharra izatea, mende bat zeukan gutxienez, aulkiak **egurrezkoak** ziren, ia dena zen **egurrezkoa**, diktadurak ez zuen batere gastatzen bide estuko tren haiek berritzeko. Mikel Hernandez Abaitua

Ekarri duen bidea eta oinezkoen pasabide **egurrezkoa** utzi eta nasa bukaeraraino joan da. Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina egur (3); **baita egur** (3); **bat egur** (11); **bera egur** (3); **besakada bat egur** (3); **beste egur** (5); **bi egur** (6); **dira egur** (6); **ditu egur** (3); **du egur** (4); **edo egur** (3); **egur apur** (5); **egur apur bat** (4); **egur asko** (5); **egur bat** (9); **egur batean** (4); **egur batzuk** (4); **egur bila** (6); **egur edo** (5); **egur egiteko** (3); **egur egiten** (3); **egur errearen**

(3); **egur eta** (12); **egur eutsi** (3); **egur eutsi samarrak** (3); **egur eutsiak** (3); **egur gainean** (7); **egur garraioan** (4); **egur gehiago** (13); **egur gehien** (4); **egur gehien jasotzen** (3); **egur gehiena** (4); **egur guztiak** (3); **egur handia** (4); **egur handietan** (4); **egur hori** (6); **egur hura** (3); **egur iharrak** (4); **egur iharrak eskuz** (4); **egur ikatza** (3); **egur mota** (4); **egur pila** (6); **egur pilak** (5); **egur pilaren** (4); **egur puska** (25); **egur puska bat** (3); **egur puska baten** (4); **egur puska bati** (3); **egur puskak** (7); **egur puskaren** (3); **egur pusketa** (7); **egur pusketa kiskalia** (3); **egur pusketak** (4); **egur sortaren** (4); **egur sortaren gainean** (4); **egur sport** (4); **egur sportek** (15); **egur sporteko** (3); **egur sporten** (3); **egur takoak** (3); **egur txikitzen** (3); **egur ustela** (3); **egur zama** (6); **egur zati** (4); **ere egur** (3); **eta egur** (39); **eta egur gehiago** (3); **suko egur** (3); **zehar egur** (4); **zen egur** (7); **ziren egur** (3)

azken egurra (3); **burdina eta egurra** (3); **da egurra** (5); **du egurra** (4); **duen egurra** (4); **edo egurra** (6); **egurra banatu** (4); **egurra banatzen** (3); **egurra basoan** (3); **egurra besterik** (5); **egurra bezain** (3); **egurra biltzen** (5); **egurra bota** (3); **egurra botatzen** (7); **egurra ebakiko** (3); **egurra ebakiko dute** (3); **egurra ebakitzen** (3); **egurra edo** (5); **egurra egin** (5); **egurra egiteko** (3); **egurra eman** (30); **egurra eman diote** (4); **egurra eman eta** (3); **egurra emanda** (4); **egurra emanez** (4); **egurra emango** (6); **egurra ematea** (5); **egurra emateko** (9); **egurra ematen** (18); **egurra ematera** (3); **egurra ere** (4); **egurra eta** (19); **egurra ez** (4); **egurra izan** (4); **egurra jaso** (9); **egurra jasotzea** (3); **egurra jasotzen** (4); **egurra mozten** (7); **egurra moztera** (3); **egurra moztu** (3); **egurra pinotxori** (3); **egurra txikitu** (4); **egurra zeraman** (4); **eman egurra** (4); **ere egurra** (4); **eta egurra** (46); **ikatza eta egurra** (3); **kaoba egurra** (4); **kaoba egurra zeraman** (3); **moztutako kaoba egurra** (3); **nolako egurra** (5); **ontzako egurra** (4); **ontzako egurra ebakiko** (3); **oparitarako egurra** (4); **sekulako egurra** (7); **sekulako egurra eman** (4); **suak egurra** (5); **suari egurra** (6); **suari egurra botatzen** (3); **sutako egurra** (3); **sutarako egurra** (4); **zuen egurra** (5); **zuten egurra** (3)

anitu egurrak (3); **baina egurrak** (3); **bi egurretan** (6); **bigarren egurrean** (3); **buztinez eta egurrez** (3); **dira egurrak** (3); **egurrak ebakitzeko** (4); **egurrak ebakitzen** (4); **egurrak ere** (5); **egurrak eta** (5); **egurrak ez** (8); **egurrak plazaratuko** (4); **egurrak plazaratuko dituzte** (4); **egurrak prestatzen** (3); **egurraren eta** (4); **egurraren gainean** (9); **egurrean hartu** (3); **egurrean hasi** (4); **egurrez egindako** (6); **egurrez egiten** (3); **eta egurrak** (6); **eta egurraren** (13); **eta egurrean** (5); **eta egurrez** (11); **eta zehar egurrak** (3); **haize egurraren** (3); **hiru egurretan** (4); **lehen egurrean** (4); **lehen egurretik** (4); **lehen hiru egurretan** (3); **zehar egurrak** (9); **zortzi egurrak** (3); **zutikako egurrak** (3)

bere egurrezko (4); **bere egurrezko hankarekin** (3); **egurrezko ate** (10); **egurrezko ate zaharraren** (3); **egurrezko atea** (3); **egurrezko aulki** (6); **egurrezko aulki batean** (3); **egurrezko banku** (3); **egurrezko egitura** (7); **egurrezko eskailera** (6); **egurrezko eskailerak** (4); **egurrezko eta** (5); **egurrezko etxe** (4); **egurrezko etxola** (4); **egurrezko gurutze** (3); **egurrezko gurutzeak** (3); **egurrezko habe** (5); **egurrezko hanka** (8); **egurrezko hankarekin** (3); **egurrezko hesiaren** (3); **egurrezko hiru** (4); **egurrezko horma** (3); **egurrezko kaxa** (6); **egurrezko kutxa** (6); **egurrezko leiho** (3); **egurrezko mahai** (11); **egurrezko mahai bat** (3); **egurrezko makila** (4); **egurrezko ontzi** (3); **egurrezko zubi** (3); **egurrezkoa da** (5); **egurrezkoa zen** (4); **eta egurrezko** (42); **haritz egurrezko** (5); **zegoen egurrezko** (6); **zen egurrezko** (5); **zituen egurrezko** (3); **zuen egurrezko** (7)

egurrik ez (3); **egurrik gabe** (4)

---

eguraldi 1 *iz* eguratsaren egoera.

Eguraldia, zoria bera bezala, aldakorra da. Jon Alonso

Ze **eguraldi** dakar, Arturas? Unai Elorriaga

Gairen bat atera nuen gero, Triesten beti halako **eguraldia** egiten al zuen edo antzeko hizpideren bat. Anjel Lertxundi

Tenperatura zero gradukoa, **eguraldia** hotza eta gardena. Joseba Sarrionandia

Eguraldi honek ez du kanpoan lo egiteko gogo handirik ematen. Juan Luis Zabala

Leihoa ireki zuen, ukondoak eskudelean bermatu zituen, ongi sentitzen zen, **eguraldia** zakar samarra izanik ere. Jon Alonso

Gauean **eguraldia** aldatu egin zen, eta euriz zamatutako haizeak jo zuen mendebaldetik, hotz eta errukigabe. Agustin Otsoa

Subway Series-ak etorri ziren eta joan ere bai; **eguraldia** hoztu egin zuen; Gore eta Bush lehian ari ziren. Oskar Arana

Dagoeneko **eguraldia** zertxobait berotzen hasita dagoen arren. Josu Zabaleta

Memoria elurra bezalakoa baita: erori berri xapatxetan aise urtzen da **eguraldiak** epeltzera eginez gero. Pako Aristi

Atertu du, otzandu da **eguraldia** eta, laino artetik kukuka hasi eta gero, eguzkia nagusitzen ari da. Anjel Lertxundi

Hurrengo goizean **eguraldiak** txarrera jo zuen. Bernardo Atxaga

Ezer berririk ez: aparteko **eguraldia** ari du egiten. Josu Zabaleta

Eguraldia euritara zegoela bota nuen nik. Anjel Lertxundi

Zer moduzko **eguraldia** dugu. Jon Alonso

Eguraldia ezin txarragoa zen asteburuaren hasieratik, hogeita hamabost graduko bero sapa itogarria, hezetasunez eta argi itsugarriz erasoka. Oskar Arana

Harrera, **eguraldia** bezain beroa. Berria - Kultura

Eguraldia sargori, aterako niela freskagarriren bat. Anjel Lertxundi

Han bazirudien, **eguraldia** horren hila zegoen eta, une batetik bestera euria hasi behar zuela. Josu Zabaleta

Hautsiezinezko erritoa zen hori, Donostiara etortzen zenetan Barandiaraneko terrazan zerbait hartzea, **eguraldia** lagun. Iñaki Iñurrieta

Tira, Andreas, lot nazazu mastara, **eguraldia** zeharo gaiztotu baino lehen. Anjel Lertxundi

Eguraldiaren aldaketa mendearen hasieratik sumatzen zen, eta uzta txarrak eta goseteak areagotu zituen; 1315-1317ko goseteak, adibidez, Iparraldeko Europa osoari eragin zion. Koro Navarro

Originala izateko ahaleginean, **eguraldiari** edo egoera politikoari buruzko topiko lagungarriak saihestu nahi izaten ditut, eta, blokeaturik, zentzurik gabeko kontakizun aspergarrietan galtzen naiz. Ramon Saizarbitoria

Eguraldiaz mintzo direnen sindromea. Pako Aristi

Jendeak **eguraldiaz** hitz egiten didan bakoitzean beste zerbait adierazi nahi duela iruditzen zait. Antton Olano

Hurrengo goizean **eguraldiak** txarrera jo zuen. Bernardo Atxaga

"**Eguraldiak** behintzat ezeri ez dio zorrik", pentsatu nuen. Txillardegi

Eguraldiak ez zuen giroa zapuztu, eta trikitilariak, bertsolariak eta aizkolariak jo eta su aritu ziren. Berria - Euskal Herria

«**Eguraldiak** laguntzen badu», maiatzean hasiko dira Prestige ontzian gelditzen den fuela ateratzen. Berria - Gaiak

Eguraldia eta bizi-beharra elkarrekin lotuak ageri zaizkigu baserriko berri batere ez dakigunoi ere. Iñaki Segurola

Eguraldia berehalakoan aldatzera balihoa bezala, larunbateko egunsentian, antxeten eta kaioen karraka errepikakorrek esnatu ninduten. Txillardegi

Bi hizlarien arabera, aski zaila da **eguraldia** iragartzea. Berria - Euskal Herria

Era guztietako **eguraldietara** ohitzeko egokiera izan bazuten ere, kalesako ibiltariak gogaitzen hasita zeuden etenik gabeko euri-zaramaz. Anjel Lertxundi

"Ezin duzu **eguraldia** aldatu, Tom", esango zion Junek, adierazi nahiz gauza batzuk ziren bezalakoak zirela eta kito. Oskar Arana

Ez dute **eguraldi** honekin jokatu nahi. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

- **Eguraldi** ederra dugu gaur, Afanasi Vasilievitx -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

Eguraldi argia dagoelarik, zaratotsak hiriaren mutur batetik sartu eta bestetik ateratzen dira, pareta guztietan zehar iragan ondotik. Monika Etxebarria

Eguraldi zoragarria egiten du, ezin esan bezain ederra. Josu Zabaleta

Eguraldi paregabea egokitu zitzaien. Imanol Zurutuza

Eguraldi distiratsua zegoen, eta trosta bizian nindoan belardietan zehar. Josu Zabaleta

Gaur **eguraldi** atsegina izan dugu hiri magiko honetan. Jon Arretxe

Eguraldi sanoa: egunez beroa eta gauez 10 edo 12 gradu freskoago, eta iparreko haizea. Berria - Ekonomia

Eguraldi nahasia izango zela. Pello Zabala

A zer **eguraldi** kaxkarra, ezta? Fernando Rey

Eguraldi eskas honekin, etxean onena. Txillardegi

Badira beste esaldi pare bat, martxoko **eguraldi** zakar edo zoro samarrarekin zerikusirik dutenak. Pello Zabala

Freskatze-prozesua ez da erabatekoa, eta airea 32 °C-ko tenperaturan irteten da normalean sudurretik; edo apalxeagoan, **eguraldi** hotza denean. Irene Aldasoro

Mendi goietako **eguraldi** aldakorra: gauez hotz, egunez bero, bat-batean lanbroa. Anton Garikano

Egunak ere, udazkeneko **eguraldi** egonkor gozoetakoak zirenez gero, [...]. Pello Zabala

Atzo **eguraldi** euritsuak eta jende andanak zirkulazio arazoak eragin zituzten zenbait hilerritako sarrera eta irteeretan. Berria - Euskal Herria

Eguraldi eguzkitsua bazen, Obaban bertan gelditu eta buelta bat ematen nuen Iruaindik. Bernardo Atxaga

Bazirudien **eguraldi** ona zetorrela berriro. Josu Zabaleta

Aski **eguraldi** ona izan da, bero handiak ba segur, bainan ez haatik duela bi urte bezalako bero alimale heietarik. Herria

Oso **eguraldi** txarra ari duen arren, hegazkinak joan eta etorri dabiltza. Josu Zabaleta

Hara biltzen dira udan Kamskeko eta beste hirietako funtzionario eta enplegatuak Barabako **eguraldi** osasun-galgarriaren ihesi. Karlos Zabala

Sabeth leiho barreneko karelean eserita, hankak gurutzaturik, oinutsik: gereziak jaten ari, kalera begira, eta hezurrak ttukatzen handik behera, **eguraldi** eurikara. Joxe Austin Arrieta

Apirileko **eguraldi** grisari aurre egiteko, kafe triste bat edatera gonbidatu zuen. Lutxo Egia

Ez nuen honelako **eguraldia** espero bezperakoa ikusita. Mikel Hernandez Abaitua

Eguraldia atzokoaren antzekoa izango dela iragarri dute. Berria - Euskal Herria

Bezperako **eguraldi** bera. Daniel Landart

Ez dago mendirako **eguraldirik**. Juan Luis Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Metereologo modernoek askoz denbora-tarte luzeagoko **eguraldi**-zikloen agerpenak argitu dituzte. Iñaki Mendiguren

Gero albisteak entzun behar dira irratian, edo telebistako **eguraldi** mapak begiratu. Bernardo Atxaga

Eguraldi-gizon edo **eguraldi**-maisuok, oraindik ez dugu zaindari jakin bat seinalatu. Pello Zabala

Ez zen falta oilarra, **eguraldi**-aldaketen iragarle. Jose Morales

Eguraldi aurrikuspenek euri gehiago iragartzen dute datozen egunetarako. Berria - Mundua

Goiz da, hala ere, **eguraldi** prebisioak egiteko, arduradunen esanetan. Berria - Euskal Herria

1982an, Euskadi Irratia abian jarri zenean, ongi jabeturik geunden **eguraldi**-informazioaren balioaz. Pello Zabala

Frantziako **eguraldi** zerbitzu publikoak aurreikusten duen bigarren larrialdi mailarik handiena jarri zuen indarrean. Berria - Gaiak

Horrelako "etxekoandre" bat, egia, ez litzateke, **eguraldi**-kontuetarako zaindari txarra. Pello Zabala

Ez dakit 1916ko Gerrateko urte parean ere han ziharduten fraide ikasle gazteenek, kintoetatik libre, eta hala, Igeldora iristen ziren **eguraldi** txartelak. Pello Zabala

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Nekazarientzako **Eguraldi** Iragarpen kanpaina horretan parte hartuko zuten Arantzazutik. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

atzo eguraldi (4); **atzoko eguraldi** (4); **baina eguraldi** (20); **baina eguraldi txarra** (8); **beti eguraldi** (8); **bihar eguraldi** (6); **da eguraldi** (12); **dira eguraldi** (4); **du eguraldi** (5); **dute eguraldi** (5); **edo eguraldi** (7)

eguraldi aldaketa (9); **eguraldi aldaketaren** (4); **eguraldi bikaina** (5); **eguraldi ederra** (33); **eguraldi ederra dago** (4); **eguraldi ederra zegoen** (4); **eguraldi egingo** (5); **eguraldi egingo duen** (4); **eguraldi eguzkitsua** (7); **eguraldi epela** (4); **eguraldi eta** (8); **eguraldi ezin** (8); **eguraldi ezin hobea** (4); **eguraldi gizon** (7); **eguraldi gizonak** (4); **eguraldi hobea** (8); **eguraldi honekin** (14); **eguraldi hori** (4); **eguraldi hotza** (9); **eguraldi iragarpen** (4); **eguraldi iragarpenak** (6); **eguraldi iragarpenen** (6); **eguraldi iragarpenen arabera** (4); **eguraldi jenero** (8); **eguraldi kaskarra** (8); **eguraldi kaskarrak** (5); **eguraldi kaxkarra** (4); **eguraldi kontuak** (8); **eguraldi makurra** (4); **eguraldi on** (12); **eguraldi ona** (121); **eguraldi ona denean** (7); **eguraldi ona dugu** (4); **eguraldi ona egingo** (4); **eguraldi ona egiten** (24); **eguraldi ona izan** (4); **eguraldi ona lagun** (5); **eguraldi onak** (10); **eguraldi onarekin** (10); **eguraldi onaren** (6); **eguraldi onik** (5); **eguraldi txar** (5); **eguraldi txarra** (97); **eguraldi txarra dela** (6); **eguraldi txarra egin** (4); **eguraldi txarra egingo** (4); **eguraldi txarra egiten** (7); **eguraldi txarra zela** (12); **eguraldi txarragatik** (15); **eguraldi txarrak** (30); **eguraldi txarrak ez** (5); **eguraldi txarrarekin** (7); **eguraldi txarraren** (22); **eguraldi txarraren ondorioz** (10); **eguraldi txarrari** (5); **eguraldi txarrik** (4); **eguraldi zakarra** (4); **eguraldi zoragarria** (7); **eguraldi zoragarria egiten** (4)

ere eguraldi (7); **eta eguraldi** (68); **eta eguraldi ona** (6); **eta eguraldi txarra** (4); **ez da eguraldi** (4); **oso eguraldi** (20); **oso eguraldi ona** (6); **oso eguraldi txarra** (12); **udaberriko eguraldi** (5); **udazkeneko eguraldi** (4); **zein eguraldi** (9); **zen eguraldi** (5); **zer eguraldi** (19); **zuen eguraldi** (10)

da eguraldia (17); **eguraldia aldatu** (8); **eguraldia bera** (5); **eguraldia bezain** (4); **eguraldia da** (5); **eguraldia dago** (5); **eguraldia ederra** (5); **eguraldia egiten** (7); **eguraldia elurra** (5); **eguraldia epeldu** (4); **eguraldia ere** (18); **eguraldia eta** (21); **eguraldia ez** (18); **eguraldia ez da** (4); **eguraldia ez zen** (5); **eguraldia gero** (4); **eguraldia gero eta** (4); **eguraldia izan** (5); **eguraldia lagun** (21); **eguraldia lagun izan** (7); **eguraldia ona** (4); **eguraldia oso** (4); **eguraldia txarra** (5); **eta eguraldia** (24); **nolako eguraldia** (4); **zen eguraldia** (6); **zuen eguraldia** (5)

badaki eguraldiak (4); **baina eguraldiak** (5); **eguraldiak berak** (6); **eguraldiak eragindako** (4); **eguraldiak ere** (10); **eguraldiak eta** (6); **eguraldiak ez** (19); **eguraldiak ez du** (5); **eguraldiak ez zuen** (4); **eguraldiak hobera** (8); **eguraldiak hobera egin** (6); **eguraldiak laguntzen** (9); **eguraldiak laguntzen badu** (5); **eguraldiak okerrera** (7); **eta eguraldiak** (16)

da eguraldiaren (6); **eguraldiarekin ere** (5); **eguraldiaren aldaketa** (6); **eguraldiaren arabera** (8); **eguraldiaren berri** (21); **eguraldiaren eta** (6); **eguraldiaren gaineko** (4); **eguraldiaren inguruko** (4); **eguraldiaren iragarpena** (5); **eguraldiaren iragarpenak** (5); **eguraldiaren peskizan** (4); **eguraldiaren tartea** (4); **eguraldiari begira** (5); **eguraldiari buruz** (9); **eguraldiari buruzko** (12); **eguraldiari eta** (4); **eguraldiaz eta** (5); **eguraldiaz hitz** (7); **eta eguraldiaren** (14); **eta eguraldiari** (6); **hiltzeko eguraldirik egingo** (5); **zen eguraldiaren** (5)

---

eguraldizale *izond* eguraldia aztertzen zalea dena.

Eguneko nahiz bezperako argazkiek, zer esanik ez, saio aberatsa, erakarri bizikoa osatzen du, euskaldun **eguraldizaleak** merezi duen tamainakoa. Pello Zabala

Denok egin gaitu **eguraldizale**. Pello Zabala

Une honetako ezetzak ez zuen Pello **eguraldizale** eta aro-maitale natura horrenbeste estimatzen duenik ekarriko. Pello Zabala

---

egurasgarri *izond* egurasteko modukoa.

Filosofiak filosofia, eta entretenimendu solasak entretenibide, bai esan daitekeela gezur-deskuidu handirik gabe, eguratsa egurasteko eta **egurasgarri** dugula benetan euskaldunok. Pello Zabala

---

egurastaldi *iz* egurasteko aldia.

Inoiz edo behin, paparazzi batzuekin egiten genuen topo gure bidean, Pont-Neuf aldeko **egurastaldietan**. Joxan Elosegi

---

egurastalditxo *iz adkor* egurastaldia.

Bestalde, gaur asko mugitu beharrean aurkitzen gara: lanerako, ikastola nahiz unibertsitaterako, basorako, sororako, mendirako, kalerako, enkargutarako, hainbat eginbehar betetzeko, erretiroa hartu dutenen paseorako, kiroletarako, **egurastalditxorako** edo bisitarako. Pello Zabala

---

eguraste *iz* haizetan jartzea; airea edo haizea hartzea edo harraraztea.

Logela iluna da, **eguraste** txarrekoa, altzari gehiegiz hornitua, koltxoia pikorrez betea. Oskar Arana

Hidraulikako adituak badaki balioesten gorputzak fluidoak zirkularazteko eta kontserbatzeko dituen sistema burutsuak, eta berokuntza- eta **eguraste**-sistemetako aholkulariari miresgarri gertatzen zaizkio sudurraren eraginkortasuna eta ekonomia. Irene Aldasoro

---

egurastu, egurats/egurastu, egurasten **1** da/du *ad* haizetan jarri; airea edo haizea hartu edo harrarazi. ik**aireztatu, haizatu 3**.

Dendaren alartzera ateratzen zen batzuetan, **egurastera**. Karlos Zabala

Babiloniako jauregian **egurasten** zebilela, [...]. Elizen arteko biblia

Bero handiegia egin baino lehen parkera **egurastera** joateko proposamena egin zion don Ottaviok Ruche jaunari. Jon Muñoz

Kuarteleko sotoetan ezarri gintuen, gela bakoitzean bat, bakoitzak bere oharka eta bere perraila, arrantxoa hamaiketan, **egurasteko** ordua eta gure artean komunikatzeko debekua. Juan Garzia

Maxi on egingo zion pixka bat **egurasteak**. Jon Muñoz

Horregatik, ohera baino lehen, gauero egiten nuen osteratxo bat ontzi-gainalde guztietan barrena, **eguraste** aldera. Joxe Austin Arrieta

Ireki ditzatela leihoak seietan, **egurats** dadin, eta mahaia jar dezatela gero. Xabier Olarra

Dutxatu, jantzi, leihoa zabalik utzi kutsadurak gela **egurastu** zezan, eta kaleratu egin zen. Migel Angel Mintegi

Azkenean burua **egurastea** erabaki zuen. Migel Angel Mintegi

Gela nazka emateko moduan zikin zegoen, inoiz **egurasten** ez diren lekuetan egon ohi den lizun usainez betea. Juan Kruz Igerabide

Neuronak **egurastu** beharra daukat. Jon Muñoz

2 (era burutua izenondo gisa)

Hortaz, egin dezagun ontzi hau berau izan dadila leku **egurastu** eta osasunezko. Edorta Jimenez

· Ene iritzian, hobeki geundeke lehorrean, leku ongi **egurasturen** batean, itxitura kirastu honetan baino. Edorta Jimenez

Gela hark -ongi **egurastua**, argia, eguzkia sartzen zena, liburuak eta paperak zituena-, lanerako gogoa ematen zion. Josu Zabaleta

Esnatzeaz batera, mutila atsekabeturik ohartu zen argia artean piztuta zegoela gela bero eta gaizki **egurastutako** hartan. Lopez de Arana

3 (era burutua izen gisa)

Larunbatero bezala, bere **egurastua** hartzera irten zen Max Clignancourteko Arkakuso Merkatura; oinez joan zen, Montmartreko kaskoaren iparraldean barrena. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egurastu beharra (3); **egurastu eta** (3)

---

egurats **1** *iz* airea, eskuarki lurra inguratzen duen gas estalkia. ik **atmosfera**.

Gauza guztiek beren atsedena hartzen dute beren erdigune naturalera iristen direnean, hala nola harria lurrera, sua **eguratsaren** gaineko esferara. Joan Mari Lekuona

Horregatik eguzkia gorde bezain laster, **eguratsak** argia galdu egiten du, nahiz eta beroak oraindik iraun, beretzat emana izan delako. Joan Mari Lekuona

Gero, ekaineko arratsalde sargorietan, kiratsa lurretik gora altxatu eta lurrun atsitu batek astundu zuen **eguratsa**. Karlos Zabala

Lur zati dezente samarrak, etengabeko eguzkiak kiskaliak, hamaika oinek zapalduak, hauts lainoa eta hodei hegalariak exhalatzen ditu, haize indartsuek **egurats** osoan zabaltzen dituztenak. Xabier Amuriza

Saharako hautsak **eguratsa** egonkortzen du eta urakanak sortzea galarazten. Berria - Gaiak

Eguzkiak beroa damaio **eguratsari**. Joan Mari Lekuona

Aro ona zen oraindik, baina **eguratsa** gero eta astunago zegoen, eta elektrizitatez betetzen ari zen nabarmenki. Karlos Zabala

Tximistaren batek **eguratsa** urratzen zuenean. Edorta Jimenez

Ilunabar luzeak **eguratsa** freskatu egin zuen. Karlos Zabala

Eguratsera botatako hondakinek eragin duten arazoari aurre egiteko, ezinbestekoa da kimika. Berria - Gaiak

Hori guztia bizkor gertatzen da, isiltasunean, **eguratsaren** tenperatura eta presio berean. Juan Garzia

Pertsona bat ez da tenperatura, argi, **egurats**, presio eta egoera animikoaren nahasketa besterik, hein handi batean. Harkaitz Cano

Oihuak, **eguratsaren** korronteek eramanda, gero eta argiago bereizten ziren. Karlos Zabala

Haize zantzurik ez **eguratsean**. Karlos Zabala

ik beherago 6.

Jainkoa hedatzen da izpirituan, eguzkia **eguratsean** zabaltzen den bezala. Joan Mari Lekuona

Lan-talde honetan eraikuntzarako material berriak ikertzen ari dira, **eguratseko** kutsadura gutxituko dutenak. Berria - Gaiak

Sudurra, izatez, **eguratseko** partikula guzien filtro purifikatzaile eta hezatzailea da. Patziku Perurena

Olatuek oso gogor jotzen zuten, eta apar xirimolak oso goraino **eguratsa** hezetasunez eta kresal-usainez betetzen. Txillardegi

Egurats nahastu hartako airean zebilen mamua konjuratu eta uxatu nahiko balu bezala. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mentzigu eta hartxori arinak, aldra zalapartaritan agertzen eta desagertzen ziren eta **egurats** barea gurutzatzen. Txillardegi

Bizi-gunea, zeinen meharra den berez: berrehun metro eskas, hortik gora **eguratsa** meheegi bilakatzen baita, hotzegi. Joxe Austin Arrieta

Tarteka, aire eta **egurats** garden garbi apartaz esnatzen da eguna, udazkena bixtaratuz. Pello Zabala

Bero itogarria izan genuen harreragile Campeche-n, eguraldi likits eta **egurats** itsaskorra. Joxe Austin Arrieta

Zein eztanda soinu zabaltzen zen airean, nondik nora zihoazen **egurats** gandutsua hegan zeharkatzen zuten txoriak, milaka gauza xehe. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Irratiko musikak, bolumen guztian segitzen zuelarik, ez zidan arintzen halako **egurats**-kolore urtsu batek nigan beti eragin ohi duen arima-giroa. Anjel Lertxundi

Eta beste inon aurkitu ez dudan usain-**egurats** berezia hatsartu ohi zen gure sotoaren espaloian. Txillardegi

4 irud/hed

Gasolinaren antzeko likidoez osatuta dago Titanen **eguratsa**. Berria - Gaiak

Berariazko aparatuetan jangaiak oxigenorik gabeko eta presio apaleko ("hutsean") **egurats** artifizialean prestatuko direnez., [...]. Edorta Agirre

Tupustean eta inongo etenik gabe pasatu baitzen adoleszentziaren behe-lainoetatik helduaroaren **egurats** gorrira. Fernando Rey

5 giroa-edo.

Botikako **eguratsa** lar dentsoa zitzaion Mentxuri. Josu Landa

Euskal Zerbitzu Sekretuen buruzagiaren esaldia dilindan gelditu zen bulego hitsaren **egurats** pisuan. Alberto Ladron Arana

Egunak bare igarotzen ziren **egurats** koipetsu hartan, oparotasun geldo haren erdian. Karlos Zabala

Argiontziaren gasa erretzen zen tabernako **egurats** oraindik esnatu gabean. Karlos Zabala

Ostatuko **egurats** beroa, ukuiluko **egurats** astuna. Juan Garzia

Zer egin dezaket ezkongai-etxe bateko sekretu ustelekin, adulterio baten xehetasun zimelduekin, **egurats** ustelduko logela-sekretu lizunduekin. Xabier Olarra

Janarizko lozorro bat, betekadaz kargaturiko **egurats** bat nagusi zen sukalde hartako giroan. Karlos Zabala

Mistika ez zela alemaniar Mistikarekin jaio, zerutik eroritako meteorito bat bailitzan, Erdi Aroko erlijio-**eguratsean** sartzean ikusgarriro irazeki zena azkenean bere goritasuna galdu arte. Joan Mari Lekuona

Eta beste inon aurkitu ez dudan usain-**egurats** berezia hatsartu ohi zen gure sotoaren espaloian. Txillardegi

6 ***eguratsean*** aire zabalean.

Ez zaio bortxarik egin behar, guztizko patxada erosoan utzi behar zaio **eguratsean** lehortzen. Juan Garzia

Hiru egun eman ditut han, **eguratsean** lo eginez. Juan Garzia

· Kanpoan, **egurats** betean, lasaitu nintzen, eta lortu nuen neure onetara itzultzea. Joxan Elosegi

Berniz-erretxina sorta bat inportatua genuen - **egurats** -giroan utzirik besterik gabe tenperatura arruntean solidifikatzen diren horietakoa, hain zuzen-. Juan Garzia

7 ***egurats ordu*** egurasteko ordua.

Laugarren egunean, **egurats** -orduan, harri kozkor bat sartu nuen ezkutuan poltsikoan, zeren Guido eta Aldorekin komunikatzen saiatu nahi bainuen, zeinak aldameneko bi geletan baitzeuden. Juan Garzia

11 ***egurats zabal*** aire zabala.

Haren azpian, putzu bertikal bat, zeinak galeria horizontal luze batera ematen baitzuen; hura, berriz, muino-mazelara irteten zen **egurats zabalera**, lantokitik gora. Juan Garzia

Egurats zabalean egin zuten lo, gurutze-tontorretatik hurbil. Juan Garzia

Norbaitek beranduago edan nahi bazuen, zubian edatea zeukan, gau ilunean, **egurats zabalean**. Juan Garzia

Ordokiaren erdi erdian ageri da, teilatu-hormak **egurats zabalari** emanak. Jokin Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egurats eta (3); **eta egurats** (6); **eta eguratsa** (4)

---

egurgile *(ETCn 89 agerraldi)* **1** *iz* ogibidetzat egurgintza duen langilea.

Badira bi **egurgile** behartsu, bat zaharra eta bestea gaztea, egunero basora joan behar izaten dutenak egurra egin, garraiatu, eta bildutako egur hura salduz zer irabazi eta zer jan izateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Omiene tribuko kristauen laguntzen, noiz hargintxo, lurrezko etxeetan, noiz **egurgile** oihan oparoetan. Piarres Aintziart

Herioaren laguntza fardela bizkarrera jasotzeko eta ez bestetarako behar duen **egurgilearen** esku-dardara. Imanol Zurutuza

Basorik trinkoena ere soiltzen duten **egurgileak**. Elizen arteko biblia

Jaunak aukeratuko zuen tokian, **egurgile** eta ur-ekarle izatera behartu zituen. Elizen arteko biblia

Egurgile jentil batek bere etxean hartu zuen. Koro Navarro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bordara heltzean, **egurgile** itxura zuten bi gizon atera ziren haiengana. Elena Touyarou

Mahonezko prakak, Kanadako **egurgile** estiloko alkandora eta... abarkak. Joxean Sagaztizabal

Semearengana joan zitzaizkion begiak, **egurgile** -alkandora jantzirik ageri baitzen argazki batean, eta hasperen egin zuen. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egurgile eta (3); **egurgile eta ur** (3)

---

egurgin *(ETCn 39 agerraldi)* *iz* egurgilea.

Baso itsuan aizkoran ari den **egurgina** ziruditen. Elizen arteko biblia

Herrian -ez bainaiz gehiago joaten, bertan galtzeko beldurrez- zeken fama dut; zer liteke, ordea, oihaneko **egurginaren** gordailua? Juan Garzia

---

egurgintza *iz* enborrekin-eta egurra egitea.

Bere iritziz, **egurgintzaren** grebak eraikuntzarenari «protagonismoa» kenduko liokenez, ez da garaia. Berria - Ekonomia

Hala ere, ohartarazi du eraikuntzaren gatazka amaitu bezain laster hasi daitekeela **egurgintzarena**, «egurreko langileek ere merezi duten lan hitzarmena lortzeko». Berria - Ekonomia

Sindikatuek atzera bota dituzte SEAk metalgintzan eta **egurgintzan** egin dituen azken proposamenak. Berria - Ekonomia

Egurgintzako beharginak eta Caballito eta Newelleko grebalariak ere batu zitzaizkien. Berria - Ekonomia

---

egurka **1** *adlag* egur bila.

Moisek harrika hilarazi zuen Jainkoaren egunaz **egurka** ibili zen gizon bat. Xipri Arbelbide

2 egurra ematen.

Nabarmentzekoa da Euskaltzaindi barruan batasunaren aurka eta Euskaltzaindiari berari **egurka** zihardutenen euskaltzainen kopuru hazia: 24tik zazpi! Koldo Zuazo

---

egurkari *iz* egurgilea. ik **egurketari**.

Behin batez, egurretara joanda, karga bizkar gainean hartuta, bide luzea egin beharra egokitu zitzaion **egurkari** zahar bati. Imanol Zurutuza

Egurkari txiro bat, abarrez arras kargaturik, intziriz eta makur, pauso motelez zihoan, sortaren zamapean. Imanol Zurutuza

Bago erorirat **egurkari** guztiek laster... Joan Mari Irigoien

---

egurketa *iz* egur biltzea; egur egitea.

Bazen lan mota frango laborari etxeetan: arto jorrak, arto biltzeak, arto xuritzeak, ogi joiteak, belar egiteak, belarketak, **egurketak**, iratze epaiteak, gisu labeak, auzolanak, xerri hiltzeak eta nik dakita zer oraino... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bestaldeko angeluan, hirugarren konpartimenduan, nola-halako piramide bat metatzen zen zutikako enborrez eta azao ziritsuz, negurako **egurketa**. Koldo Izagirre

Gure bizimoduak betiko martxari jarraitu zion: sakristiako sabaiaren pintaketa, otorduen prestaketa, sutarako **egurketa**... Xabier Mendiguren Elizegi

Udaberria esnatzearekin batera, lanak hasten dira: garraioa eta **egurketa**, bide guztiak lokazturik daudela; ereintzarako prestamenak. Jose Morales

Ez dute landan egur bila edo basoetan **egurketan** ibili beharrik izango, arma horiekin egingo baitute sua. Elizen arteko biblia

---

egurketari *iz* egurgilea. ik **egurkari**.

Egurketariek indigenak hiltzen dituztela ere salatu zuen. Berria - Gaiak

Bigarrenaren arkuko giltzarrian biztanlearen lanbideko ezaugarriak zeuden zizelkatuak, gurpil bat gurdigile batenean, aizkora bat **egurketariarenean**. Koldo Izagirre

Bi **egurketariak** txabola xaxtar hartan daudela, hotza hezurretaraino sarturik eta odola izozten hasia, dama zuri eder bat sartu da eraikuntza zaharrean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gainera, **egurketaria**, ez zen bada **egurketaria** izango, bestela ez baitzen halako postu garaira helduko. Bego Montorio

---

egurki *iz* egur gaia.

Hidrokarburu lantuen eta **egurkien** sartzeak petik gora joan dira. Herria

Egurki horiek hain zuzen arrangura fierrak pizten dituzte San Bernateko auzotarren artean. Herria

---

egurlan ik **egur 16**.

---

egurmaila *iz* zurezko maila. ik **harmaila**.

Txikitutako egurra pilatu zuen Samuelek guztiz bete gabe gelditzen zen **egurtegi** bakarrean. Anjel Lertxundi

Azken finean, karpako harmailek edo **egurmailek** esan beharko genuke? antzinako greziar antzokien forma gorde dute, ikusleok ekintza kolektibo eta katartiko baten parte sentitzen gara han eta karpako goi erpinek zerurantz bideratzen dute arima guztien energia, katedral gotikoen antzera. Berria - Kultura

---

egurtegi *iz* egurra gordetzeko lekua.

Kaxatan gorde ohi zituen, etxeko **egurtegiaren** atzeko aldean. Mirentxu Larrañaga

Harrikadak paretetan eta **egurtegiaren** txapazko teilatuan entzuten ziren. Josu Zabaleta

Egurtegia hutsik zegoen. Javi Cillero

Ama ahalegindu zen zaldia **egurtegian** giltzapetzen. Mirentxu Larrañaga

Zergatik ez zenuten deitu **egurtegitik**? Oskar Arana

Egurtegiko hesiaren goian eta behean. Anton Garikano

Berdin-berdin ibili zitekeen kartetan kandela baten argitan **egurtegi** batean. Koro Navarro

Ez ote ginuen gure ama-eskolan berean, ordukoetan bixtan da, zoko ilun, **egurtegi** bat, "le cachot" deitzen zaukutena eta horko mehatxua ardura berritzen zaukutena... Herria

---

egurtsu *izond* egur asko duena.

Barbara Allenen hilobian, herriko hilerrian, txilar bat jaio zen, sustraiekin pipak egiteko erabiltzen diren txilar zurtoin-luze eta zuztar-**egurtsu** horietako bat, eta denborarekin lore zurixkako zuhaixka handi samarra egin zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

egurtu, egur(tu), egurtzen **1** du *ad* jipoitu.

Manifestazioan parte hartzen ari zen jendea **egurtu** eta atxilotu zuen Marokoko Poliziak. Berria - Mundua

Zeuzkanak kendu eta, **egurtu** ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Elizen arteko biblia

Gauza berezirik ez du kartzelara joateak, hori bai, non eta ez zaituzten **egurtzen**. Fernando Rey

Lehen poliziak **egurtu** besterik ez gintuen egiten, eta orain ez. Pako Aristi

Eguzkiaren lehen printzak zeruan agertu ziren arte **egurtu** zuten mutila. Xabier Aranburu

-Hire semea **egurtzera** natorren, atso zaharra! Juan Kruz Igerabide

Ongi **egurtu** ondoren, kartzelara bota zituzten, kartzelariari arduraz zaintzeko aginduz. Elizen arteko biblia

Jendarme batek eta obran zebiltzan bi gizonek aise eta gogoz **egurtuko** zuten aita, ni han egon izan ez banintz. Harkaitz Cano

Erabat desitxuratu arte **egurtu** ondoren, eskuak eta hankak txikituta, bera eta gainerako atxilotuak olibondoetatik kanposanturaino eraman zituzten, paseoan, hormetara. Jon Maia

2 irud/hed

Ron Artest eta Jermaine O'Nealen lanari esker, 65-87 **egurtu** zuen Miamiko taldea. Berria - Kirola

Pixkanaka-pixkanaka Lasa III.a Armendariz **egurtzen** hasi zen, eta Martinez Irujo, berriz, orain dena eta etorkizunean izan daitekeena erakusten. Barojaren beste biografoetako batek, Eduardo Gil Berak, gupidagabe **egurtu** zituen Barojaren hondarreko lan hauek. Berria - Kirola

Bertze batek, berriz, "arrazoi etiko edo moralak" argudiatu zizkidan: borroka armatua modu bidegabean **egurtzen** nuen noski. Aingeru Epaltza

Film ausarta dela entzun dugu, ez mccarthysmoa **egurtzen** duelako bakarrik, baizik eta gaur egungo Bushen administrazioaren aurkako alegoriatzat jo daitekeelako, komunisten lekuan musulmanak ipinita. Berria - Kultura

3 (era burutua izenondo gisa)

Zakur **egurtuaren** itxura zuen, oso haurtzaro zaila izan zuelako. Fernando Rey

Asto **egurtuaren** gisan sartzen nintzen ohean lotara. Fernando Rey

Zaurituak, atxilotuak, deportatuak eta orotariko **egurtuak** eta kaltetuak. Edorta Jimenez

4 (era burutua izen gisa) jipoia.

Eta nik hartu nian **egurtua**, motel. Anton Garikano

Egurtu bat eman beharko zaio. Pablo Sastre

Horregatik, nonbait, urtero birraitona Luká?si berebiziko **egurtua** ematen zioten, hainbestekoa ezen aitonak esku organ eraman behar izaten baitzuen etxera. Fernando Rey

5 *ipar* egur bihurtu.

Zuhaitz burukitak **egurtu** eta, ikatza egiten zuten, hori ere kabletan jausteko errepideraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aintziburuko Mixelek erran zidan ari izan zela lehenago arbola batzuen **egurtzen** "Martiez Ordoki"-n eta atzeman zuela obus puska bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arte egurtu (3); **egurtu egin** (3); **egurtu egingo** (3); **egurtu egiten** (3); **egurtu eta** (4); **egurtu ondoren** (3); **egurtu zituen** (3); **egurtu zituzten** (4); **egurtu zuen** (13); **egurtu zuten** (4); **egurtzen ari** (4); **egurtzen ari ziren** (3); **egurtzen zuen** (6); **egurtzen zuen harekin** (4); **eta egurtu** (4)

---

egurtzaile *iz* egurtzen duena.

Astakirtenen Banda; Emazte-**egurtzaile** Damugabeen Ordena; Nabarmen Gartsuen Legio Bikaina. Xabier Olarra

---

egurzale *iz* egurgilea.

Bi **egurzaleak** txabola bazterrean etzan dira beroaren izpiak nondik berenganatuko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egurzale zaharra izoztutako lurrean hobiratu dute arrats hartan bertan. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

egutegi **1** *iz* denbora egun, aste, hilabete eta urteetan banatzeko sistema.

Gertatzen diren gauzen joanean **egutegi** bat dago beti azpian, ez egitekoen agenda baten modukoa, baizik eta doazen eta datozen ilargien almanaka bat bezalakoa. Fernando Rey

Haien **egutegiak** 12 hilabete zituen, eta hilabete bakoitzak 30 egun. Pello Salaburu

Sothis izarrean oinarritu zuten egiptoarrek beren **egutegia**, eta **egutegiak** eta kalendarioak izan dituzten herri guztien historian beti gertatu izan den gisa, egiptoarrek ere beren **egutegia** noizbehinka egokitu behar zioten eguzkiaren ibilbideari, Txinatarren **egutegiaren** arabera, ahuntzaren urtean sartu gira otsailaren 1ean. Pello Salaburu

Erromako **Egutegian**, Romulorenean, hasiera batean 10 hilabete bakarrik zituzten. Pello Zabala

Hiru astez aurreko ostegun horri septuagesima ondokoa deitzen zitzaion Elizaren **egutegian**. Pello Zabala

Egutegiak; pisuak eta neurriak; dirua. Iñaki Mendiguren

2 urteko egun guztien berri eta argibideak dakartzan taula, orria edo orri multzoa.

2003ko otsaila **egutegian**. Joxerra Garzia

Arbelaren ondoan, **egutegiak** 1957ko iraila zela adierazten zuen. Bernardo Atxaga

Egutegiko aktoresa politen aurpegiak ebakitzen nituenean. Juan Kruz Igerabide

Hozkailuan zintzilik, Seaskaren **egutegia**. Eider Rodriguez

Ez zuen bizitza osoan liburu alerik irakurri, baina egunero irakurtzen zuen Arantzazuko **egutegiko** orritxoa. Joan Mari Irigoien

Pentsatzeko beta hartu balu bezala, Jesusen Bihotzaren **egutegiari** orria altxatu eta atzeratu egin zuen bidaiatzeko aukeratutako eguna. Joxemari Urteaga

Egutegi bat ate atzean, inoiz ikusi ez zuena. Pako Aristi

Beretzat egina zuen **egutegian** beste egun bat markatu zuen. Iñaki Mendiguren

Kutxaren **egutegia** da. Pako Aristi

Hor dago Arantzazuko **egutegia**, guk orriak biratzeari utzi genion urtean zapuztua: 1978an hain zuzen. Pako Aristi

Zortzi urte atzeragoko **egutegia**, pentsu konpainia baten propaganda, 1924koa. Jon Maia

Mirko Celestino italiarrak ez du Milan-San Remo, txirrindularitza **egutegiko** lehen klasiko handia korrituko. Berria - Kirola

Nafarroako Gurasoen Elkarteen Federazioak, helegitea aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak hurrengo ikasturterako onartutako **egutegiaren** aurka. Berria - Euskal Herria

Oposizioaren interes maltzurrak iradokitzen zituen bileraz bilera, zalantzarik gabe aldez aurretik finkatutako **egutegi** ongi pentsatu baten arabera. Jon Alonso

Baldin neure **egutegiari** sinesten badiot, bi egun baizik ez ditu, adiskide maitagarria, nigandik urrun zarela; baina neure bihotzari sinesten badiot, baditu bi mende. Jon Muñoz

Atelier guztietako takilla guztietako **egutegi** guztietako titiduna naiz. Koldo Izagirre

Urte guziez bezala **egutegiak** salgai dira eta etxez etxe ibiltzen dira hortarako. Herria

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Juduen **egutegi** zibila askoz ere konplikatuagoa da. Pello Salaburu

1999ko abenduaren 31k bat egiten du 1420ko Ramadamaren azken ostiralarekin, nahiz eta Islam herriek oro har, Arabia eta Emirerri Saudiak kendurik, **egutegi** gregorianoa erabiltzen duten beren nazioarteko harremanetan. Pello Salaburu

Gure **egutegi** musulmanaren arabera. Patxi Zubizarreta

Egutegi astronomikoarekin erkatuz gero, kalendario zaharrak bazuen 80 eguneko hutsarte bat. Pello Salaburu

Handik dakigu, zeltiarren **egutegi** partikularrean, Haritza dugula errege eta nagusi. Pello Zabala

Eta atzo bertan, Arantzazuko **Egutegi** aspaldikoetan begira, 1949. urtekoan juxtu, lehenbizikoetakoan, honako ñabardura honekin topatu nuen esaldi bera: [...]. Pello Zabala

Kontzilio osteko **egutegi** berritze eta enkajatze horretan. Pello Zabala

Gregoriar **egutegiaren** eta errepublikar **egutegiaren** arabera markatuta zeuden hilabeteak eta urteak. Jon Muñoz

Erromatar **egutegian** hasieran. Iñaki Mendiguren

Gaurko **egutegia**. Pello Salaburu

Egun hartan haurdun geldi nintekeen ala ez begiratu behar nuen nire tenperatura-taulan, Oginok asmatutako **egutegi** famatuan. Karlos Zabala

Unión Artesana ez da soilik Danborradaren suspertzaile izan; hiriko **egutegi** emozional eta sentimentaleko jai seinalatuenen aitzindari izan da. Askoren artean

Kafetegiko horma baten esekita zegoen **egutegi** handiari begirada bat ematera joan zen. Jon Arretxe

Hormako **egutegiari** so egin zion: abenduaren 14a zen. Harkaitz Cano

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antzeko kasu batzuk ezagutu nituen, neuk aztertutako savant artista, **egutegi**-asmatzaile eta kalkulatzaile zenbaiten Artean. Xabier Olarra

egutegi arazoak medio, Rosario ez zitekeen izan ugaldean agertutako atsoa. Aingeru Epaltza

Kontzilio osteko **egutegi** berritze eta enkajatze horretan. Pello Zabala

Mirko Celestino italiarrak ez du Milan-San Remo, txirrindularitza **egutegiko** lehen klasiko handia korrituko. Berria - Kirola

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jolasetatik aparte, bada esaldirik, baserriko zereginei begira, lan-**egutegia** seinalatzen duenik: Babiloniarrek, esaterako, ilargi **egutegia** zuten, 30 eguneko hamabi hilabetekoa. Pello Zabala

Ilargi-**egutegia** aztertuta konturatu al zinen beti ilbeteetan egoten nintzela gaixo? Iñaki Mendiguren

Banekien Ogino **egutegiaren** arabera sasoi arriskutsuan nengoela. Joseba Urteaga

Ezin izan zioten beren buruari eutsi Hermionek prestaturiko azterketa-**egutegia** ikusi zutenean. Iñaki Mendiguren

6 denbora tarte baterako aurreikusten diren egitekoen plan ordenatua.

Berotze globala sortzen duten gasen isurpena mugatzeko **egutegia** ez zuten onartu Ameriketako Estatu Batuek. Iñaki Heras

Berri ona da, **egutegi** bat zehazten duelako, Nazioarteko Espazio Estazioaren azkenengo atalak jartzen bukatzeko eta espazio ikerketa hasteko. Berria - Gaiak

Martxoaren 14ko hauteskundeen **egutegia**. Berria - Euskal Herria

Bateratze baldintzekin batera, era berean, prozesuaren **egutegia** ezarri zen Maatricht-en, esan bezala, Europako Batasunak bizi izan zuen finantza eta ekonomia krisiak aldarazi zuena. Iñaki Heras

Kalitate Legea aplikatzeko **egutegia** kontuan ez hartzea. Berria - Euskal Herria

Azkaratek lan baldintzak, soldata, **egutegia**, ordutegia eta oporrak (bi aste baino ez) ezarri dizkiela azaldu zuten. Berria - Ekonomia

Bilkura horretan **egutegia** finkatu eta argitu nahi du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Sakrifizioei buruzko arauak liturgi **egutegiaren** arabera. Elizen arteko biblia

Hona hemen batzar sakratua eginez ospatuko dituzuen festaburuen **egutegia**. Elizen arteko biblia

Akordioa lortzea ezinezkoa den neurrian, **egutegia** inposatzen digute Espainiako Federazioak, Espainiako txirrindulari taldeen elkarteak eta Espainiako antolatzaileen elkarteak. Berria - Kirola

Igandean korrituko da **egutegiko** azken proba. Berria - Kirola

Egutegi kargatua du Frantziako Barne ministroak. Berria - Euskal Herria

Egutegi pregoia. Pello Zabala

Batzar horretan zehaztuko dute, besteak beste, hurrengo asteetako estrategia, eta jarraitu beharreko mobilizazio **egutegia**. Berria - Ekonomia

Berezko lan **egutegia** eskatu du LABek Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Berria - Euskal Herria

7 egunerokoa.

Pigafeta idazlea, bidaiaren **egutegia** idatziko duena. Ramuntxo Etxeberri

Yorgos Séferis greziarrak abantaila deitzen dio nik pagotxa deitu izan diodanari haren **Egutegiak** dakarren apuntetxo akuilagarri batean. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arantzazuko egutegi (3); **ateratzeko egutegi** (3); **baina egutegi** (4); **beste egutegi** (3); **ditugun egutegi** (3); **du egutegi** (3); **egutegi arazoak** (5); **egutegi arazoak daude** (3); **egutegi bat** (37); **egutegi bat zehazteko** (3); **egutegi batean** (5); **egutegi baten** (3); **egutegi berria** (5); **egutegi egokia** (3); **egutegi eta** (5); **egutegi gogorra** (5); **egutegi handi** (3); **egutegi handia** (3); **egutegi hau** (3); **egutegi honek** (5); **egutegi hori** (5); **egutegi partikularrean** (3); **egutegi propioa** (3); **egutegi zaila** (3); **eta egutegi** (14); **eta egutegi bat** (3); **gure egutegi** (5); **lan egutegi** (9); **zein egutegi** (4); **zelten egutegi** (5)

arantzazuko egutegia (6); **beren egutegia** (4); **berezko lan egutegia** (3); **da egutegia** (4); **denboraldiko egutegia** (4); **dituen egutegia** (3); **duen egutegia** (6); **egutegia aldatu** (3); **egutegia bera** (3); **egutegia egin** (3); **egutegia eguna** (3); **egutegia ere** (7); **egutegia eskatu** (4); **egutegia eta** (15); **egutegia eta araudia** (3); **egutegia ez** (6); **egutegia ez da** (3); **egutegia finkatu** (7); **egutegia gogorra** (3); **egutegia lehen** (4); **egutegia nahi** (3); **egutegia onartu** (3); **egutegia otsailaren** (3); **egutegia prestatu** (3); **egutegia zehazteko** (3); **egutegia zehaztu** (9); **egutegia zehaztu zuen** (3); **egutegia zozketatu** (3); **eta egutegia** (17); **euskaldun gazteriaren egutegia** (5); **gazteriaren egutegia** (5); **gure egutegia** (3); **hauteskundeen egutegia** (5); **hauteskundeetarako egutegia** (3); **izango duen egutegia** (3); **lan egutegia** (18); **ligako egutegia** (7); **ligaren egutegia** (3); **mobilizazio egutegia** (4); **mobilizazioen egutegia** (4); **orain egutegia** (3); **ordutegia eta egutegia** (3); **p egutegia** (3); **probako egutegia** (3); **proposatutako egutegia** (4); **txapelketaren egutegia** (3); **urteko egutegia** (4); **z egutegia** (15); **z egutegia lehen** (3)

baina egutegiak (4); **bere egutegian** (5); **beren egutegiaren** (3); **egutegiak ere** (3); **egutegiak eta** (6); **egutegiak ez** (3); **egutegian ere** (3); **egutegian ez** (3); **egutegian sartu** (3); **egutegiaren arabera** (12); **egutegiaren zozketa** (3); **egutegiari begiratu** (3); **egutegiari buruz** (3); **egutegiari dagokionez** (5); **egutegiko azken** (6); **egutegiko azken proba** (4); **egutegiko lasterketa** (6); **egutegiko lehen** (6); **egutegiko proba** (10); **egutegiren bat** (4); **elizaren egutegian** (4); **espainiako egutegiko** (3); **eta egutegiak** (5); **eta egutegiaren** (4); **txirrindularitza egutegiko** (5); **zelten egutegiko** (3); **zuen egutegian** (6); **zuhaitzen egutegian** (4)

---

egutegitxo *iz* tamaina txikiko egutegia.

Karteran dudan **egutegitxoari** begira, Marga etxera itzuli eta bakarrik utziko ninduen egunerako zenbat falta zen kalkulatzen nuen behin eta berriz. Xabier Montoia

---

egutera 1 *iz* leku eguzkitsua; eguzkiak jotzen duen aldea.

Patiora irteten garenean **eguteraren** txokoa bilatzen dut, zaharraren hezurrek beroa behar dute. Koldo Izagirre

Mendien laiotzetan, elurra dago, ez hala **eguteretan**. Xabier Olarra

Hiltzen naizenean, ehortz nazak **egutera** honetan, eta erran harginari ezen taila dezala spiral bat ene hilarrian, epitafio gisa. Joan Mari Irigoien

Bidaia honetako paisajea bezain aldakor sentitzen naiz: noiz lehor noiz heze, noiz **egutera** noiz ainube, noiz bero noiz hotz. Patxi Zubizarreta

Kukuak txantxangorria iñude; **eguterak** masail bat aiñube. Pello Zabala

Eguraldi ona dugu, jendez irakiten dago **eguterako** alde hau, hemen jesarrita hartzen dute ribeiroa nire herritarrek. Koldo Izagirre

Aulki gurpildunetan eseritako eriak ere ageri ziren han-hemenka, eguzkiari so, **eguterako** epela gozatzen. Anjel Lertxundi

Putzu kalera begira nengoenez, gela egokia neukan, **egutera** betean. Txillardegi

Ostatuko **egutera** argiztatuan ginen jadanik. Itxaro Borda

2 irud/hed

Orok izaki bere **egutera** eta bere itzal laiotza. Pello Zabala

Imajinazinoaren hegazti beltza sartzen zitzaidan berriro kontzientziaren **eguteran** itzal egiterat. Joan Mari Irigoien

Bazekien ukimenak ez zuela gezurrik esaten, gainerako zentzumenek uka zezaketena ere hark argitzen eta ateratzen zuela egiaren **eguterara**. Felipe Juaristi

Maiteminaren ekaitzetatik / melatuta atera ondoren / maitasunaren **egutera** epelagoetara / eramango nauten bideak. Pako Aristi

Biziaren **eguteran**, bizitasun guztia sartzen du gizakiak gauza guztietan; eta ilunabarrean barrura begiratze bat dago. Berria - Kultura

3 (izenondo gisa) eguzkitsua.

Behekoan sukaldea egongo zen, leku **eguteran** eta elektratresnarik sofistikatuenekin ongi hornitua. Josetxo Azkona

Alboko aitonaren begi horietan Bozateko leku **eguterak** ikusten baititut. Hasier Etxeberria

Umeekin ere hona inguratzen nintzen, izan ere toki hau **egutera** baita, eta babesa. Patxi Zubizarreta

4 *eguteran*

Eskuz garbitu, lehortu eta **eguteran** zabaldu behar izaten zen, lehen, maindirea, belazean, haren zuritasunak bere osoan distira egingo bazuen. Lurrera jaisteko desioa: hara behera jaitsi, **eguteran** dirauten azken izei haietaraino, haien erretxina usaindu eta uraren jarioa entzun. Joxerra Garzia

Eguteran solasean ari diren emakume adintsuak *bon jour*ka ari zaizkio. Javi Cillero

Kontuan hartu behar da, herri eta auzo bakoitza, batzuk **eguteran** besteak ospelagoan, batzuk kaskoetan, besteak zokoguneetan, bakoitza paraje eta gune ezberdin eta oso diferenteetan kokaturik dagoela. Pello Zabala

Horregatik, **eguteran** hazitako zuhaitzak sendo egiten dira itxita dauzkatelako poroak, eta ez dute izaten hezetasunak eragindako ahuldaderik. Santiago Iruretagoiena

Han hemenka zenbait katu, **eguteran** lotan, eta zakur pare bat pausan. Jose Angel Irigaray

New Yorkera legez kanpo joan eta, egunak kalean ematen omen zituen, ahal zuelarik **eguteran** zeren eta [...] eguzkitan gutxiago sentitzen omen zuen gosea. Pablo Sastre

Eguteran hegoak beste aire-poltsa epela pilatzen du hurrengo mendi zerran. Pello Zabala

Mendien laiotzetan, elurra dago, ez hala **eguteretan**. Xabier Olarra

---

eguteratsu *izond* egutera betekoa.

Adiskideok, Rosello guztian ez dago hau baino ardo delikatuagorik: mahats gizenenekin eta **eguteratsuenekin** egiten dute. Anjel Lertxundi

---

eguzaita ik **ugazaita**.

---

eguzalaba ik **ugazalaba**.

---

eguzki 1 *iz* Lurra argitzen eta berotzen duen argizagia; argizagi horren argia. ik**eki**.

Eguzki esaten diogun su-masa hori. Juan Garzia

Mugimendu hori ez da mugagabea, **eguzkia** beti itzultzen baita puntu berera: 365,242 egun behar izaten ditu behin izarrarteko puntu jakin batean ikusi, eta berriz ere puntu horretan, ez beste nonbait, ateratzeko. Pello Salaburu

7ak eta 13an atera omen da **eguzki** jauna. Pello Zabala

Edozein izenen pean adoraturik, Baal **Eguzki** jainkoa da. Xabier Olarra

Heriotza laster zetorkiola jakitean, Anaia **Eguzkiaren** kantika kantarazten die anaiei. Askoren artean

Euskaldunok ere, hasiera batean, **eguzkia** gurtzen genuen. Pello Salaburu

Eguzki nahiz ilargiari nahiz izar-multzo eta izar guztiei intsentsua erretzen zietenak. Elizen arteko biblia

Jainko Jauna dugu **eguzki** eta babeski, Jaunak egiten mesede eta ohore. Elizen arteko biblia

Goizean goiz, **eguzkia** ateratzean, abia zaitez eta eraso hiriari. Elizen arteko biblia

Behin baino gehiagotan pentsatu izan diat suizidioan, baina **eguzkia** beti ateratzen duk nonbaitetik. Joan Mari Irigoien

Eguzkia atera eta alminar baten pareraino goratu zen. Fernando Rey

Eguzkia jaikitzen denean oinez abiatu eta itsaso barearen ertzean soroetan zehar ihintzetan ibiltzea, zer mozkorraldia! Josu Zabaleta

Gau itsusi haren ondoren **eguzkiak** egun berri bat argitu zuen. Pako Aristi

Eguzkia egunero irteten ei da... Sonia Gonzalez

Lurretik ateratzen diren lurrunak goizeko **eguzkiaren** irteerarekin batera mugitzen hasten direnean. Santiago Iruretagoiena

Itsasoaren gainean **eguzkia** gora zihoan. Jose Morales

Eguzkia goian dago, laster iritsiko da eguerdia. Jon Alonso

Eguzkia gorenean zegoen. Patxi Zubizarreta

Eguzkia itsugarria da. Berria - Kultura

Eguzkia altutxo zegoen oraindik, jai eguna amaitutzat emateko. Josu Zabaleta

Artizarra **Eguzkiaren** aurretik igaroko da gaur. Berria - Gaiak

Euriz kargatutako hodei ilunak urratu egin ziren, eta argiune txiki batetik **eguzkia** agertu zen, lautada osoa argituz. Joanes Urkixo

Eguzkia harantzago ari zen etzaten, Kaweah lakuaren ondoko muinoetan. Bernardo Atxaga

Eguzkia ia behean zegoen orain, itsaso ilunduak erdibitua. Koro Navarro

Eguzkia ezkutatzen ari zen, poliki-poliki, presarik ez balu bezala. Felipe Juaristi

Eguzkia gandu-errezel lodi baten atzean ari zen ezkutatzen, haren atzean disko zurbil eta distiragabekoa bihurturik. Josu Zabaleta

Eguzkia gorde zen, iritsi zen ilunabarra. Koldo Izagirre

Gero, **eguzkia** sartu zenean, hilobia egin eta ehortzi egin nuen. Jose Antonio Mujika

Eguzkia sartzean, hil egin zen. Elizen arteko biblia

Ilgora zegoen ilargia, **eguzkiarekin** "koadraturan". Jon Muñoz

Eguzkiak jotzen zuen, bero eta argitsu. Agustin Otsoa

Goizez ibiltzen ziren; **eguzkiak** gogorren jotzen zuenean geratu egiten ziren, eta ilunabarrean jarraitzen zuten. Xabier Aranburu

Nautikoko bazkide batzuk, bainujantzian, harkaitz gainean **eguzkia** hartzen. Iñaki Iñurrieta

Ez dira gehiago gose, ez egarri izango, eta ez ditu **eguzkiak**, ez sargoriak joko. Elizen arteko biblia

Leku horietan **eguzkiak** udan indar handia izaten baitu jaiotzen den unetik. Santiago Iruretagoiena

Eguzkia Aries zeinuan sartzen denean eta zeinu horren zortziren bat zeharkatu duenean, udaberriko ekinokzioa markatzen du. Santiago Iruretagoiena

Egunsentiko argi grixkaran ere basoarte itsua, **eguzkiaren** lehen printzak oihaneko zeruertz ordokiaren gainetik. Joxe Austin Arrieta

Eguzkiak bere azkeneko izpiak helarazten zizkigun, egunaren amaierari datxekion malenkoni une iheskorrean. Txillardegi

Ilargia baliteke **eguzkiaren** izpiek jota argitzea eta egunez egun bere argia, **eguzkiaren** diskotik urrundu ahala, gureganantz gehiago bihurtzea. Xabier Amuriza

Eguzkia puntu gorenetik asko urrundu aurretik, arrano handia hegan iritsi zen oihuka. Agustin Otsoa

Ostatutik ateratzean, **eguzkiaren** beroak jo nau. Piarres Aintziart

Lurrerantz ere makurtzen da, beraz, **eguzkiaren** beroa. Xabier Amuriza

Eguzkiaren errainu uhintsuen artean, zuhaitzen arteko bideak misterioz beterik zeuden. Juan Kruz Igerabide

Eguzkiaren erradiazioaren parte handi bat islatzen du larruazalak. Irene Aldasoro

Eguzkiaren energia baliatzen du kamerak. Berria - Euskal Herria

Aldearekiko zut da itzala **eguzkia** bere zenitean dagoen unean. Jon Muñoz

Oraintxe ere animalia asko sortzen da lurretik, euriek eta **eguzkiaren** berotasunak eraginda. Xabier Amuriza

Eguzkira gerturatzean izotz konglomeratura lurrundu egiten zela esan zuen, eta lurrundutako partikulek isats luze eta ikusgarria sortzen zutela. Berria - Gaiak

Eguzkiak bete-betean jotzen du mahaia eta begiak kizkurrarazten dizkio aitari. Anjel Lertxundi

Hondarrezko lau mendiren arteko zulo **eguzkiak** kiskali hartan. Josu Zabaleta

Eguzkia ere desagertu egin da, lainoak estalirik. Juan Kruz Igerabide

Ez da ezagutu holakorik **eguzkiaren** azpian. Iñaki Segurola

Beldur izeneko jaun batek mehetzen duela jendeen odola, eta *bihar* eta *behar* esaten ez dakienik ez dagoela **eguzkiaren** azpian. Iñaki Segurola

Eguzki iluntzen hasiaren argiak arrats-gorritzen zituen elizatxo zaharra eta haren ondoko kanpandorre apal bereizi samarra. Josu Zabaleta

Eguzkia hain hurbil irudikatzen baldin badugu, ez da haren egiazko distantzia ez dakigulako, Izpirituak **eguzkiaren** handitasuna irudikatzen duelako baizik, **eguzkiak** berak Gorputza hunkitzen duen arabera. Piarres Xarriton

1b (deklinaera mugagabean)

Eta beste zerbait ere ikusi zuen: eztanda bat, begiak erretzen zituen argialdi bat, mila **eguzkiren** indarraz zeruan gora altxatzen zen ke-mordo erraldoi bat, burdinazko ukabil baten antzekoa. Alberto Ladron Arana

Urrunera begira itsas hegazti zuriak ikusi zituen, ibaiaren gainean **eguzkitan** hegan. Agustin Otsoa

Gure barrutietan belarra **eguzkitan** ontzen den bezala, lizar-hostoa ontzen omen zuten haiek. Pello Zabala

Eguzkitan, bero errea. Berria - Harian

Eguzkitan usteltzen ari zen lokatzari zerion kiratsa. Joxe Austin Arrieta

Kafearen bila joan, kikara hartu eta **eguzkitan** esertzera alde egin zuen. Anton Garikano

Erdi lañotan erdi **eguzkitan**, Xaretako oihana zeharkatu dugu eta Zugarramurdiko Anttonen menttan bazkaldu. Herria

Guztia zumezko otarre batean jarri eta **eguzkitara** itzuli ziren. Agustin Otsoa

Bueno, goazen **eguzkitara**! Joxean Sagaztizabal

Nor ez da ipini, noiz edo noiz, **eguzkitara** edo argi bizitara begira, atera nahi ez duen doministikuari kanpora eragitearren? Patziku Perurena

Gerizpetik **eguzkitara** etortzen denean. Koldo Izagirre

Trapu berriak **eguzkitara** ateratzen ibiltzea bezala duk hori. Antton Olano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eguzki goiztarra hazten doanaren iruditzat hartu zuen zeltar herriak otearen lorea. Pello Zabala

Une hartan, ordea, **eguzki** betea zegoen, eta argia distiratsua zen Loxetako belardian. Ramon Saizarbitoria

Hego boladak ekartzen badakien arren, **eguzki** epeleko aldiak ere bai. Pello Zabala

Hirugarren Etorbidearen kantoian gelditu zen, arratsaldeko **eguzki** beroaren pean dardarka. abuztuko **eguzki** itogarriaren pean **Eguzki** kiskalgarritik gordetzeko. Lopez de Arana

Paraje gehienek, gainera, **eguzki** erreak penatzen ditu. Pello Zabala

Larruaren koloreko lurraren gainean **eguzki** brodatuak dituzten longainak hedatu. Fernando Rey

Harritzekoa ere ez, nik uste: herbeherea, tropikoa, eurite-aldiko hezetasuna, **eguzki** berunkara. Joxe Austin Arrieta

Igande goizean esnatu zenean, Harryk neguko **eguzkiaz** argiturik aurkitu zuen logela. Iñaki Mendiguren

Uztaileko **eguzkiak** bulegoko leihoetako pertsiana higatuen zuloak urratzen zituen. Lopez de Arana

Goizaldeko **eguzkiak** ezin du zulatu gorritzen hasitako zeru irazekia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Han dago Mendaolatza, goizeko **eguzkia** leihoetan dirdai. Pako Aristi

Eguerdiko **eguzkia** bera bezain distiratsu Beltza zuen ilea, eta distira motela erakusten zuen, ilunabarreko **eguzkiak** petrolio putzu baten erdian bezala. Patxi Ezkiaga

Paretak arratsaldeko **eguzkia** islatzen. Juan Garzia

Arratseko **eguzkia**, hantxe islatua nire itzal luzea ere. Joxe Austin Arrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kometak **eguzki** sistemaren bazter hotzetan sortu zirela uste zen. Berria - Gaiak

Uranok ere eraztun urdin bat du, **eguzki** sistemako bigarrena. Berria - Gaiak

Eguzki sistematik 12 argi urtera dago Tau Ceti izarra. Berria - Gaiak

Kometa duela 4.500 miloi urte sortu zen, **Eguzki** sistemaren mugan kokatua dagoen Kuiper asteroide gerrikoan. Berria - Gaiak

-Ez ote dugu laster **eguzki** eklipse bat izanen, osaba, hainbertze zozorekin...? Joan Mari Irigoien

Marten ura **eguzki** ekaitzen ondorioz desagertu zela uste dute adituek. Berria - Gaiak

Eguzki-orbitaren azpiko aldean bizi direnak, eguzkiaren indar horren eraginez, gorpuzkera txikikoak izaten dira, beltzaranak. Santiago Iruretagoiena

Beherago eta albo baterat, **eguzki** erloju zaharra. Joan Mari Irigoien

Orain arteko espaziuntzi gehienek **eguzki**-panelak erabili izan dituzte bidaiatzeko. Berria - Gaiak

Indar hori biltzeko erabilitako **eguzki** xaflak dira gailuaren beste berrikuntzetako bat. Berria - Gaiak

Eguzki energiaren alorrean. Berria - Ekonomia

Haien begiak ezin ikusi, zoritxarrez, beraiek ere **eguzki**-betaurrekoak eramaki. Joxe Austin Arrieta

Institutuan **eguzki** betaurrekoak jantzi, ikasleei baloia eman, "gaur partidua egingo dugu!" esan eta denak pozik. Jon Arretxe

Neska zoriontsuak eta eguzkiak erreak, beren **eguzki** kremekin. Koro Navarro

Eguzki egunetan, ostera, zaila dago toailari leku egiten hondartzan. Hasier Etxeberria

Ez da aurrerantzean gaurik izango; ez dute kriseilu-argirik, ez **eguzki**-argirik beharko. Elizen arteko biblia

Eguzki uholde bat ari zen erortzen basamortu zuri distiratsu izoztu haren gainean. Josu Zabaleta

Iraileko goiz batean, Lisa goizeko **eguzki** bainua hartzen ari zen garaian. Karlos Zabala

Urrezko **eguzki**-errainuen artean galdu zen arte. Joan Mari Irigoien

Zuhaitzen artean **eguzki** errainu bat ikusi nuela iruditu zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Batez bestekoari begira, % 53 **eguzki**-izpitan, hor nonbait galtzen dena. Pello Zabala

Oihal haiek diz-diz egiten zuten lehen **eguzki** printzen argitan. Karlos Zabala

Eguzki galgatan, laino eta hodeirik gabe, erre eta kiskali den lur azalean. Pello Zabala

Eguzki-diskoaren gaineko ertza. Pello Zabala

Leihotik, ikusmira auzo etxeek mukurutzen zuten; porlanezko bloketzarrak eguerdiko **eguzki**-begitara zimeltzen. Aingeru Epaltza

Eguzki-orban hauek 11 urte inguruko zikloa dute. Pello Zabala

Oinazez nengoela esan zioten, **eguzki** kolpe bat izan nuela, ez dakit zer. Josu Zabaleta

1883. urteko Krakatoaren erupzio harena: hauts-pila ikaragarriak bidali zituen, eta **eguzki**-erradiazioaren % 25 inguru murriztu zituen, bere laurdena. Pello Zabala

Goian, pertsianak itxiak daude, eta **eguzki** oihalak jaitsiak. Karlos Zabala

Eguzki sartze ederrei begira ere hartzen zuen atsegin, arratsetan. Karlos Zabala

Bi zati ditu Etiopiak, **eguzki** sortzea eta **eguzki** sartzea. Aurelia Arkotxa

Ez ahantz noiznahi haizea bihurtu daitekeela **eguzki** sartzetik ilkitzera eta alderantziz. Aurelia Arkotxa

Ordu biak aldera, **eguzki**-eguzkitan, arrosategian paseatzen ari nintzen... loratzen hasi berriak diren udazkeneko arrosen artean. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esnatu nintzenean, eguerdi-**eguzki** betea ari zuen. Juan Garzia

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Han airea eta odola bera itxita daude, usoak eta mitxeletak berak itxita, euri-**eguzkiak** itxita, zeru-lurrak itxita eta infernua ateak zabalik. Felipe Juaristi

Eguzki-ilargien orbitak nola sortu zituen ordenan azalduko dut. Xabier Amuriza

Eguzki-ilargien joera eta gorabehera orori. Pello Zabala

Eguzki-ilargiok, bedeinka ezazue Jauna, goretsi eta goraipatu menderen mendetan! Elizen arteko biblia

Handik isurtzen baitigute **eguzki**-ilargi-izarrek euren argia lurrera. Imanol Unzurrunzaga

6 irud/hed

Planeta berri hori Lurretik 50 eguzki urtera dago, eta Mu Arae **eguzkiari** bira emateko 9,5 egun behar ditu soilik. Berria - Gaiak

7 *eguzki argi* *(orobat* ***eguzkiargi*** *g.er.)*

Orduan, **eguzki argia** zeharka iristen zaio ilargiari eta gorriz tindatzen da. Berria - Gaiak

Eguzki argiak -paretetako poroetan barrena, antza- argiz blaitzen zuen gela. Matías Múgica

Jakina zen, agerikoa zen, **eguzki argia** bezain ziurra. Felipe Juaristi

Ez dute kriseilu-argirik, ez **eguzki-argirik** beharko, Jainko Jaunak egingo baitie argi. Elizen arteko biblia

Kriseilu argia **eguzki-argiarekin** konparatzea bezala izango litzateke. Joan Mari Lekuona

Aurpegia lasai ageri du egunsentiaren **eguzki argitan**. Xabier Paya

Hantxe buruz gora etzanda geundelarik goizeko **eguzki-argitan**, Pete agondu egin zen bat-batean. Irribarre egitera zihoakidanean etorri zitunan azalik gabeko gizonak eta igo gintiztenan **eguzki-argitara** hildakoengana eta bultzatu zitiztenan itsasora. Mirentxu Larrañaga

Laino artetik iragazten zen **eguzki-argi** doian bilduta, auzoak geruza sepia kolore bat zuen, iraganarena, haurtzaroarena, oroimenena. Anjel Lertxundi

Larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak **eguzki-argitan** gorri. Joxe Austin Arrieta

Eguzki-argi zerrenda bati barneratzen uzten zion pertsiana berdearen arraildurara. Lopez de Arana

Aipagarri dira, besteak beste, airearen kalitatea, **eguzki-argi** orduak, paisaia edo aisia. Iñaki Heras

8 ***eguzki haize*** eguzkiak norabide guztietan eta abiadura handiz igortzen duen fluxu etengabea, batez ere protoiz, elektroiz eta helio nukleoz osatua.

Ordutik, **eguzki-haizea** aztertzen eta haren laginak biltzen jardun du espazio zundak. Berria - Gaiak

Eguzki haizeak barreiatutako partikulak jasotzea zen NASAren espaziontziaren helburua. Berria - Gaiak

Horrekin **eguzki-haizearen** partikulak lurreko partikulekin kutsatzea eragotzi nahi dute NASAko zientzialariek. Berria - Gaiak

Eguzki haizeko atomoak zekartzan Genesis-ek, baina jausgailuek huts egin zuten eta kolpeak ireki egin zuen. Berria - Gaiak

Nafar hego xumeari, batzuetan nafarra soilik ere esaten zaionari, hego ekialdekoari, **eguzki** haizeari, hego penintsulakoari, [...]. Pello Zabala

Nafarraldetik, barreneko parajeetatik datorkigun haizexka mantsoago horri, ipar ttikia deitzen diogu, edo **eguzki-haizea** deitu izan zaio. Pello Zabala

9 ***eguzki lore*** *(orobat* ***eguzkilore*** *g.er.)* landare handia, hosto-zorrotza, eguzkiaren eiteko loreak dituena*(Carlina acaulis).* ik **ekilore**.

Jondoni Joaneko belarrak ere (elorri-xuri, iratze, **eguzki-lore** , erramu, ogi landare eta bertze...) bildu dira gau hortan. Herria

Udaberriko egun euritsu batez, **eguzki loreak** landatzen aritu ginen. Juan Kruz Igerabide

Gelako bazter batean, **eguzki lore** hori bat ageri zen. Juan Kruz Igerabide

Herri-sarreran, ezkerrean, gaztelu xahar bat eta **eguzki-lore** erraldoizko multzo batzuk ikusten ziren. Josu Zabaleta

Eguzki lorearen ale beltz umotuak noiz agertuko. Juan Kruz Igerabide

Eguzki-lore koipearekin hidrogenoa sortzea lortu dute. Berria - Gaiak

Gers departamenduan gaindi, **eguzki-lore** eremu zabalak trebeskatuz. Herria

Handik honainoko tartean makaldiak ibaia markatuz, galsoroak, **eguzki lore** saila... Jokin Urain

Zartaginean oilasko paparrak **eguzki-lore** oliotan erretzen. Unai Iturriaga

10 ***eguzki saindu*** *ipar* eki saindua, kustodia.

Erakustokian ikusten ahal diren kurutze, kalitza, **eguzki saindu** eta gauza sakratuen andana gaitz eta aberatsak burtxoratu naute Piarres Aintziart

11 ***eguzki urte*** urtea.

Maien kalendarioak **eguzki-urtea** 365,2420 egunekotzat kalkulatu omen zuen, 365,2422-kotzat beharrean. Joxe Austin Arrieta

12 ***eguzkitako betaurreko*** *pl* eguzkitik babesteko betaurrekoak. ik **eguzkitako 3**.

Eguzkitako betaurrekoak kopetara altxatu eta inguru guztia eskuaretu zuen begiradaz. Harkaitz Cano

Madril frankismoarekin lotzen genuen: tabernetan eta kaleetan ikusten genituen gizon gehienak, beren bibotetxo, traje eta **eguzkitako betaurrekoekin** , sekretakoak iruditzen zitzaizkigun. Ramon Saizarbitoria

Ez dute ikusten **eguzkitako betaurrekoen** leiarretatik harantzago. Hasier Etxeberria

Bill bere eserlekuan mugitu zen, eta **eguzkitako betaurrekoen** zubia ukitu zuen. Koro Navarro

Eguzkitako betaurrekoak jantzi nituen. Aingeru Epaltza

Eguzkitako betaurrekoak jarrita ekiari begira jesarri da Aiora. Xabier Mendiguren Elizegi

Ilunabarra izan arren, Tom, Tomas edo Popok ez ditu **eguzkitako betaurrekoak** erantzi. Patxi Zubizarreta

Alkandora hawaiar koloretsu bat eta begiak ikusezin egiten zizkioten **eguzkitako betaurreko** ispiludunak. Patxi Zubizarreta

Txarteldegi ondoko morroiengan finkatu zituen begiak: bata beltzarana eta zurbila bestea, biak gazteak, **eguzkitako betaurreko** merkeak, hirulaurdeneko txaketak soinean! Unai Iturriaga

Begiak ikusezin egiten zizkioten **eguzkitako betaurreko** ispiludunak. Patxi Zubizarreta

· Handik gutxira beste morroi bi azaldu ziren, bibote mehe eta **eguzkitako betaurrekodunak** , ni paperak banatzen ari nintzen espaloian, jende artetik. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arratsaldeko eguzki (5); **baina eguzki** (5); **batek eguzki** (5); **bi eguzki** (5); **bihar eguzki** (5); **da eguzki** (21); **dira eguzki** (7); **diren eguzki** (5); **du eguzki** (11); **dute eguzki** (9); **edo eguzki** (5); **eguerdiko eguzki** (9); **eguzki aldera** (6); **eguzki argi** (10); **eguzki argia** (14); **eguzki argiak** (5); **eguzki argitan** (13); **eguzki bat** (10); **eguzki baten** (5); **eguzki beltza** (7); **eguzki beltzaren** (12); **eguzki beltzaren sekretua** (8); **eguzki berotan** (6); **eguzki berriaren** (7); **eguzki betaurrekoak** (8); **eguzki betean** (6); **eguzki eder** (7); **eguzki ederra** (9); **eguzki eklipsea** (6); **eguzki errainu** (11); **eguzki errainuak** (5); **eguzki errainuek** (6); **eguzki erreak** (5); **eguzki eta** (15); **eguzki galda** (5); **eguzki galdatan** (28); **eguzki ilargiak** (5); **eguzki izpi** (33); **eguzki izpi batek** (12); **eguzki izpiak** (24); **eguzki izpiek** (18); **eguzki izpien** (6); **eguzki izpirik** (6); **eguzki jauna** (5); **eguzki lore** (14); **eguzki lorea** (6); **eguzki orduak** (5); **eguzki pixka** (7); **eguzki pixka bat** (7); **eguzki printza** (9); **eguzki printzak** (13); **eguzki printzek** (13); **eguzki printzen** (6); **eguzki sartze** (5); **eguzki sartzetik** (5); **eguzki sistema** (28); **eguzki sistemako** (34); **eguzki sisteman** (17); **eguzki sistemaren** (20); **eguzki sistematik** (19); **eguzki sistematik kanpo** (8); **eguzki talde** (24); **eguzki talde ekologistak** (13); **eguzki talde ekologistaren** (5); **eguzki taldeak** (5); **eguzki taldeko** (6); **eguzki urteaga** (16); **ere eguzki** (8); **eta eguzki** (91); **ez eguzki** (5); **frias eguzki** (8); **goizeko eguzki** (8); **gure eguzki** (5); **lehen eguzki** (13); **neguko eguzki** (10); **udako eguzki** (5); **zen eguzki** (13); **ziren eguzki** (8); **zuen eguzki** (10)

arratsaldeko eguzkia (7); **baina eguzkia** (8); **da eguzkia** (25); **den eguzkia** (7); **du eguzkia** (8); **edo eguzkia** (5); **eguzkia agertu** (7); **eguzkia atera** (36); **eguzkia atera aurretik** (5); **eguzkia atera eta** (5); **eguzkia atera zen** (5); **eguzkia atera zenean** (6); **eguzkia ateratzen** (20); **eguzkia ateratzen ari** (6); **eguzkia baino** (17); **eguzkia bera** (12); **eguzkia bere** (11); **eguzkia bete** (6); **eguzkia bete betean** (6); **eguzkia bezain** (24); **eguzkia bezain distiratsu** (9); **eguzkia bezala** (5); **eguzkia da** (5); **eguzkia elkarteak** (5); **eguzkia ere** (12); **eguzkia eta** (56); **eguzkia eta ilargia** (9); **eguzkia etzaten** (6); **eguzkia ez** (19); **eguzkia ez da** (10); **eguzkia ezkutatu** (15); **eguzkia ezkutatzen** (13); **eguzkia ezkutatzen ari** (8); **eguzkia goi** (5); **eguzkia goi goian** (5); **eguzkia goian** (7); **eguzkia gorde** (5); **eguzkia gordetzen** (5); **eguzkia gorenean** (5); **eguzkia hartzen** (11); **eguzkia ikusi** (7); **eguzkia irten** (16); **eguzkia irteten** (7); **eguzkia izan** (6); **eguzkia mendi** (8); **eguzkia sartu** (38); **eguzkia sartu arte** (6); **eguzkia sartu eta** (5); **eguzkia sartua** (6); **eguzkia sartua zen** (5); **eguzkia sartzean** (14); **eguzkia sartzen** (27); **eguzkia sartzen ari** (11); **eguzkia sortzen** (6); **eguzkia zen** (5); **eguzkia zeru** (6); **eguzkia zeruan** (8); **eguzkia zeruan gora** (5); **ere eguzkia** (10); **eta eguzkia** (121); **eta eguzkia atera** (5); **eta eguzkia eta** (5); **gero eguzkia** (5); **urrezko eguzkia** (10); **zen eguzkia** (35); **zuen eguzkia** (9)

baina eguzkiak (10); **du eguzkiak** (18); **edo eguzkiak** (6); **eguzkiak argitzen** (8); **eguzkiak aurpegian** (5); **eguzkiak berak** (5); **eguzkiak bere** (29); **eguzkiak berotu** (6); **eguzkiak berotzen** (6); **eguzkiak beste** (7); **eguzkiak bete** (14); **eguzkiak bete betean** (14); **eguzkiak bezala** (6); **eguzkiak ere** (12); **eguzkiak eta** (22); **eguzkiak euri** (5); **eguzkiak ez** (15); **eguzkiak gogor** (15); **eguzkiak gogor jotzen** (11); **eguzkiak jo** (6); **eguzkiak jotzen** (28); **eguzkiak jotzen du** (6); **eguzkiak jotzen zuen** (9); **eguzkiak kiskalitako** (6); **eta eguzkiak** (75); **goizeko eguzkiak** (9); **zuen eguzkiak** (11)

anaia eguzkiaren (22); **anaia eguzkiaren kantika** (19); **baina eguzkiaren** (6); **da eguzkiaren** (9); **den eguzkiaren** (5); **dira eguzkiaren** (5); **du eguzkiaren** (5); **eguzkiarekin batera** (5); **eguzkiaren antzeko** (7); **eguzkiaren argi** (16); **eguzkiaren argia** (26); **eguzkiaren argiak** (15); **eguzkiaren argirik** (5); **eguzkiaren argitan** (15); **eguzkiaren artetik** (7); **eguzkiaren aurretik** (7); **eguzkiaren azken** (8); **eguzkiaren azpian** (18); **eguzkiaren beroa** (11); **eguzkiaren beroak** (12); **eguzkiaren distira** (13); **eguzkiaren epela** (5); **eguzkiaren errainuak** (7); **eguzkiaren eta** (23); **eguzkiaren eta ilargiaren** (7); **eguzkiaren indarra** (5); **eguzkiaren inguruan** (22); **eguzkiaren irudia** (5); **eguzkiaren izpiak** (9); **eguzkiaren izpiek** (8); **eguzkiaren kantika** (21); **eguzkiaren lehen** (12); **eguzkiaren lehen printzak** (5); **eguzkiaren pean** (6); **eguzkiari begira** (13); **eguzkiari eta** (8); **eta eguzkiaren** (80); **eta eguzkiaren argia** (6); **eta eguzkiaren artetik** (7); **eta eguzkiari** (7); **ez eguzkiaren** (9); **lurra eguzkiaren** (5); **lurrak eguzkiaren** (8); **lurrak eguzkiaren inguruan** (5); **lurraren eta eguzkiaren** (9); **zen eguzkiaren** (15); **zuen eguzkiaren** (8)

dut eguzkipean (7); **eguzkipean egin** (5); **eguzkirik gabe** (7); **eguzkitako bat** (5); **eguzkitako betaurreko** (6); **eguzkitako betaurrekoak** (20); **eguzkitan distira** (5); **eguzkitan eta** (5); **eguzkitan etzanda** (9); **eguzkitan lehortzen** (7); **eguzkitara ateratzen** (5); **eguzkitik babesteko** (10); **eguzkitik gertuen** (5); **eguzkitik oso** (5); **eta eguzkipean** (8); **eta eguzkitako** (8); **eta eguzkitan** (24); **gizonak eguzkitan** (5); **goizeko eguzkitan** (7)

---

eguzkialde *iz* ekialdea, sortaldea.

Alde batetik, latineko ortum hitzetik datorren orto hitza dugu, jaiotza, argiaren sorrera, **eguzkialdea** , adierazten duena. Patziku Perurena

1971n Pakistango **eguzkialdea** banandu egin zen eta Bangladesh estatua sortu zen. Gotzon Garate

Zazpi urrats iparraldetik hegoaldera eta beste hainbeste mendebaldetik **eguzkialdera** , eta berriz haste. Marzel Etxehandi

Nora-ezean ibiliko dira, itsasoz itsaso, iparraldetik **eguzkialdera** , Jaunaren hitzaren bila, baina ez dute aurkituko. Elizen arteko biblia

Rusoek **eguzkialdeko** Prusiaren mugak pasatuak zituzten, eta mendebalean aliatuak Rhin ibaian ziren. Marzel Etxehandi

---

eguzkialdi *iz* eguzkiak jotzen duen aldia.

Itsasoaren izotz larrua zulatu eta argitara irten ondoren merezi duen **eguzkialdia** gozatzen egongo da lasai asko. Joseba Sarrionandia

---

eguzkiargi ik **eguzki 7**.

---

eguzkibako *izlag* eguzki gabekoa.

Zuria deritzogun **eguzkibako** kolorearen nabardurak, hantxe zeuden. Edorta Jimenez

---

eguzkidun *izond* eguzkia duena.

Eguraldia garbi, eder, edo euritsu, nahiz ateri, **eguzkidun** edo elurrez, eguraldi mota denentzat dago esaldia pronto: Kandelarioz euria, laster udaberria. Pello Zabala

---

eguzkilore ik **eguzki 9**.

---

eguzkipe *iz* eguzki azpia.

Eguzkipe goxoan, emakume taldetxo bat zegoen, etxetik ateratako aulkietan eserita. Jon Maia

Lehengoan, liburu honekin oroitu eta pentsatu bainuen **eguzkipe** honetara ekartzea, gauez berrirakurri nuen eta... eskas izan zait elurra. Pablo Sastre

Zabor poltsak adreiluzko pareten kontra pilaturik, **eguzkipean**. Iban Zaldua

Bederatzi ordutik gora lan egiten dute **eguzkipean**. Berria - Mundua

Igentea kalean, **eguzkipean**, ederragoa iruditu zitzaidan, argitsuagoa; bulegoko artxibo artean polita bai, baina aire goibel eta higatua zuela iritzi bainion. Ramon Saizarbitoria

Club Marítimoko solariumean goxo-goxo daude **eguzkipean** Marta eta Letizia. Xabier Mendiguren Elizegi

Orrialdeak nahikoa lardaskatuak zituen honezkero, **eguzkipean** hilabeteak eman dituzten egunkari orrialdeak bezala, horitzen hasi ziren. Harkaitz Cano

Haren aurrean, sutegiak zurrunga egiten zuen, **eguzkipean** lokarturiko txantre baten gisan. Karlos Zabala

Biok baino zoriontsuago jaio ez dena eta **eguzkipean** egin ohi diren okerrak ikusi ez dituena. Elizen arteko biblia

Udazkeneko **eguzkipean** gorri eta hori ageri ziren hostoei begira. Agustin Otsoa

Iturri gozo bat jolasean zebilen bertan goizeko **eguzkipean**, belar berde argitsuak inguraturik. Agustin Otsoa

Milaka lagunek egin zuten, **eguzkipean**, Bilbo plazaren eta Andra Mari Zuriaren arteko ibilbidea. Berria - Ekonomia

Eguzkipeko lurraldea bezain beroa. Felipe Juaristi

Lasterka batzuetan, arinka besteetan, astebetera Al Qsar al Kabir hiriko harresiak ikusi zituen, urrutian, **eguzkipeko** gandu artean galduta bezala. Felipe Juaristi

Deus ez berririk **eguzkipean**. Jon Alonso

---

eguzkitako **1** *iz* eguzkitik babesteko erabiltzen den aterki modukoa.

Ordea, mundu errealean euritakoak **eguzkitako** bihur daitezke, eta **eguzkitakoak** euritako. Joan Mari Irigoien

Hamar mila euritako, **eguzkitako** gisa baino erabiltzen ez ziren lurraldean, zoritxarrez ez baitzegoen euririk! Bego Montorio

Txaluparen bistatik urrundu zirenean, alaba ohartu zen bertan utzi zuela **eguzkitakoa**. Koro Navarro

Eguzkitako bat, eskularruak eta sakelako musuzapi bat ere agertu ziren. Koro Navarro

Espaloi ertzean zegoen, esku batean **eguzkitako** bat zabuka zuela. Irene Aldasoro

Polizia nobelak irakurtzeko bizioa dugunok kasik gusturago irensten baititugu neguko arrats hotz eta ospeletan berogailuaren ondoan, udako sargorian eguzkitan edo **eguzkitakoaren** azpian baino. Berria - Kultura

Eguzkitakoaren eskulekua leuntzen. Irene Aldasoro

Eguzkitakoaren zeta gogorra zen, baina barrutik elkarri itsatsita zeuden izpiak. Jose Morales

Amstel **eguzkitakoaren** babespean ni. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Plataforman zut ipinitako **eguzkitako** bikain batek biribiltzen zuen hura guztia. Jon Muñoz

Txikizkako saltzaileak eta haien gaineko **eguzkitako** higatuak, gorriak, urdinak, moreak, zutoinetan loturik, merkatua konkorrez eta biribiltasun adoretsuz betetzen zutela. Karlos Zabala

Emakume bat zetorren bidean aurrera, **eguzkitako** urdin batekin, eta haren aldamenean haur bat. Imanol Zurutuza

Kafetegi baten lorategian geunden, eguzki galdatan, laranja koloreko **eguzkitakoen** azpian. Monika Etxebarria

Kafetegien kanpoaldean bazkaltzen zuen kolore biziko **eguzkitakoen** azpian. Iñaki Mendiguren

Errege baten gisa patxada-patxadan eseria bere aulkian, kolore anitzeko **eguzkitako** haren azpian! Jon Muñoz

3 *pl* eguzkitako betaurrekoak. ik **eguzki 12**.

Eguzkitako beltzen atzean ezkutatu zituen begiak. Jasone Osoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eguzkitako bat** (5); **eguzkitakoen azpian** (3)

---

eguzkitsu **1** *izond* eguzki-argiz betea.

Isiltasun bero bat erortzen zen zeru **eguzkitsutik** behera. Karlos Zabala

Gela **eguzkitsu** bat paratu zion. Anton Garikano

Leku ezkutu eta **eguzkitsu** hartan tabako-sail egiazko bat landatu zuen. Koro Navarro

Atari **eguzkitsuetan** txutxumutxuka ari ziren emakumeak ikaratzeko. Koro Navarro

Igande arratsaldean Mont-Saint-Aignaneko kale hotz eta **eguzkitsuetan** ibili nintzen. Joseba Urteaga

Ni munduko bide **eguzkitsuetan** barrena nindoala, hi itzalean gelditzen hintzen, apropos. Xabier Olarra

Goiz eder **eguzkitsu** batez Casablanca ikusi dute ontziaren kareletik. Anjel Lertxundi

Igandea zen, eguerdi bete **eguzkitsua**, udaberri ernaldu berria. Karlos Linazasoro

Urte **eguzkitsu**, epel eta lehorra omen dator. Pello Zabala

Hilabete **eguzkitsu** eta beroa izan zen. Joseba Urteaga

Egun **eguzkitsu** batez, ohi bezala Jakes etorri zitzaion bila, bere berebilean. Eneko Bidegain

Eguna ere halakoa baitzen, **eguzkitsua**. Joan Mari Irigoien

Egun ederra zen, **eguzkitsua**. Jon Maia

San Migel aurreko astea ere gozoa eta **eguzkitsua** joan zen. Pello Zabala

Hogei urterekin egin nuen debuta, Atotxan, iraileko egun **eguzkitsu** batean. Joan Mari Irigoien

Igande isil eta **eguzkitsuaren** zama hiri gainean sumatzen zen. Lopez de Arana

Igande arratsalde **eguzkitsu** batez, dantzalekuaren terrazara atera zen neska. Ramuntxo Etxeberri

Etxeari begiratu bat emango diola erabaki du Juanek -giro **eguzkitsuak** lagunduta, ezbairik gabe-. Iban Zaldua

Maiatzaren lehenean, aro **eguzkitsuaz** baliatu da jendea Bidarraiko gain horietan goxatzeko. Herria

Bestela, eguraldi **eguzkitsua** bazen, Obaban bertan gelditu eta buelta bat ematen nuen Iruaindik. Bernardo Atxaga

Urtarrileko ilunpeetara irteten den lautada elurtu eta **eguzkitsu** itsugarri bat ikusten dut. Joseba Urteaga

2 irud/hed

Etorkizun **eguzkitsuago** bat zaie opatu. Herria

Elezaharraren eremu **eguzkitsuetatik** egunerokotasun lazgarriaren tristurara itzulirik, aurreko guztia kurtsoreaz bildu, eta ezabatzekotan egon naiz. Anjel Lertxundi

Giro **eguzkitsua** behar lukeena, euroaren sendotzeak lanbrotzen du batez ere. Berria - Ekonomia

---

eguzkitxo *iz adkor* eguzki ahula.

Santa Luziatan koxka irabazten hasi zen **eguzkitxo** ahula, dagoeneko, Urtezaharrarekin -2000. urte dontsuan behinik behin- 10 minutu irabazita dabil. Pello Zabala

---

eguzkitzar *iz* eguzki beroa.

Denak isilik zeuden; leihoetatik **eguzkitzar** hura sartzen zen gelan, isiltasuna isilago bihurtzen zuten bere zurrumurru, marmar geldi eta itsasoaren arnasarekin, arnasa zaratatsua baina urrutitik entzuten zena. Josu Zabaleta

---

eguzkizale *izond* eguzkiaren zalea dena.

Itsastxakur **eguzkizaleak** ere izango dira izotz lauzen gainean etzanda, euren morfologia arraroa luzitzen. Joseba Sarrionandia

---

eguzkiztatu *izond* eguzkiak jotzen duena.

Lur **eguzkiztatu** hauek urbidez ureztatzeak aberastu ditu eta bidea bera errepide bilakatu da berriz, Azofra herrian sartu aitzin. Piarres Aintziart

Lehen olibondoak ikusi ditut, eta mahastiak gero eta maizago bide bazterrean: ja eremu **eguzkiztatuak**. Piarres Aintziart

Zortzigarrenaren itzala itzulika heldu da bizilekuen adreilu gorri **eguzkiztatuetan**, zurezko elektrika-posteen gainetik igande goiz honen bakean. Aurelia Arkotxa

---

eh **1** *interj (atentzioa emateko)*

Eh, zuek, nahikoa egurastu zarete! Iban Zaldua

- **Eh**, hi! -deitu dio Abelek arnasestuka. Pello Lizarralde

'Eh, lasai!' Baina hauxe, **eh**! Xabier Amuriza

Ero samarra da, ez dut esan nahi neska jatorra ez denik, **eh**, baina ez zion umeari kasu handirik egiten, badakizu. Iban Zaldua

-Gogor, **eh**, Zigor? ez kortatu. Jon Arretxe

- **Eh**! Hik jada hireak bota dituk! -kargu hartu dio Joxek Gabiri, bere pilatik harri bat hartzen saiatu denean-. Jokin Muñoz

Eh, zer moduz? Juan Garzia

2 (galderekin)

Zergatik uste duk nabilela ni horrela, **eh**? Pello Lizarralde

-Zita bat duzu, **eh**? Fernando Rey

Zenbat aldiz esan dinat polizia guztiak berdinak direla, **eh**?, zenbat aldiz? Mikel Hernandez Abaitua

Birritan edo hirutan horrela deitzen zidala entzundakoan esan nion: nahikoa duk, **eh**? Pello Lizarralde

Ez duzu bada farora joateko asmorik izango, **eh** Lily? Anton Garikano

Baina, zu nondik atera zara, **eh**? Nondik? Jose Angel Irigaray

---

ehaile[1] *iz ipar* ehulea.

Nahi dugun ofizioa ez dezakeguk, aitatik semera egundainotik gituk aizkolari, zurgin, maixturu, dupagin, batzuetan bat edo bertze izan zukek harrobi langile edo **ehaile**, bakan. Michel Oronoz

---

ehaile[2] **1** *iz ipar* hiltzailea.

Zergatik erahilketa horik? Nor da **ehailea**? Herria

Gizon hartz **ehaileak** ez tizü deus hunik emaiten. Herria

2 ***su ehaile*** suhiltzailea.

Xiberoko su **ehaile** eta hautetsi andana baten artean estrenatu da Mauleko sokorri zentro berria. Herria

Sühaka egünarentako, departamentüko sü **ehaileen** zentroa abisatü behar dela eta herriko aüzapeza. Herria

---

ehaite ik **eho**[1].

---

ehauntsi ik **erauntsi**.

---

ehausi ik **erausi**[1].

---

ehausika ik **erausiaka**.

---

ehem ik **ejem**.

---

ehiza **1** *iz* animaliak esestea, harrapatzeko edo hiltzeko.

Ehiza ez da beti izaten segurua; biltzea, berriz, egonkorragoa eta seguruagoa da. Luis Elberdin

Alde bakarreko gertakariak ditugu mintzagai, hala nola **ehiza**, bidelapurreria edo itsaslapurreta, *trade*-tik baino areago, *raid*-etik gertuago zeudenak. Koro Navarro

Pashak zaletasun handi bat zuen: **ehiza**, orein-ehiza. Fernando Rey

Izan ere, mutilak **ehiza** maite zuen. Koro Navarro

Ehizan zebilen harekin, nahiz **ehiza** ez duen batere laket. Jon Muñoz

- **Ehiza**, arrantza eta zurruta -esan zuen Roberts jaunak. Koro Navarro

Ez dute **ehiza** debekatu. Berria - Gaiak

Izan ere, behin baino gehiagotan erran dizut ezen aitari laket baino laketago zitzaiola **ehiza**. Joan Mari Irigoien

Zeren eta baitakizu ezen **ehiza** dabilen lekuetan ehiztaririk onena dela jaun Gezur. Joan Mari Irigoien

Vienatik itzuli zenean, **ehizara** eman zen. Xabier Olarra

-Ni **ehizara** noa, ea zerbait harrapatzen dudan hau ospatzeko. Jon Maia

Zaldunak **ehizara** irten zirenean, Ginebra erreginak mezulari bat bidali zion Lanceloti, bere gelara joateko lehenbailehen. Juan Kruz Igerabide

Hura ez zen **ehizarako** eskopeta batek egindako zuloa. Jon Maia

Gizakien bihotzek ere bai baitituzte zirraraz betetako gauak, orein arraren edo otsoaren bihotzean gordetzen den garaipenerako eta **ehizarako** grinak bezain basatiak. Xabier Olarra

Ehizarekin loturikako gaiak. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Uste dut benetan beldurrak, panikoak bultzatzen ninduela **ehiza** basati hartara. Xabier Paya

Haiengatik bada, berdin izan zintezke zu ere ospetsua edo **ehiza** larriaren zale bat edo hegazkin supertsonikoetako pilotu. Fernando Rey

Halarik ere, **ehiza** ugaria zen arren, ez zen beti gauza segura. Joan Mari Irigoien

Beren festetan, edo **ehiza** on baten ondotik, dantza egiten zuten. Joan Mari Irigoien

Bizitza etengabeko borroka bat dela, **ehiza** anker bat dela, denak elkar jaten ari garena. Josu Zabaleta

-Primerako gaua isileko **ehizan** eta arrantzan aritzeko, Tommo -xuxurlatu dit. Mirentxu Larrañaga

ik beherago 6. Askoren artean

Hogeita hamar inguru dira iragan urtean Foru Aldundiak isilpeko **ehizarekin** loturiko gertakizunengatik jaso zituen salaketak. Berria - Euskal Herria

Ezkutuko **ehizaren** aurkako publizitate kanpainak egingo dituzte. Berria - Gaiak

Azken urteotan areagotu egin da legez kanpoko **ehiza**. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ehiza-eszena bat eskatu hidan, eta **ehiza**-eszena bat pintatu diat. Joan Mari Irigoien

Beste batzuentzat, nabarmen, berak nagusi irtetea zen kontua, alegia norberaren **ehiza**-barrutia. Juan Garzia

Banekien non eskuratu zuen -hilerrian, Big Joek kutunen zuen **ehiza**-eremuan-. Mirentxu Larrañaga

1980ko hamarkadan 1.500 boskimano inguru bizi ziren Kalahari Erdiko **Ehiza** Erreserban. Berria - Gaiak

Ehiza-lagunak albait hoberen armatuta zetozen, artzain eta arrantzale baketsuak zirela kontuan hartuta. Joanes Urkixo

Ehiza Taldeko bederatzi hegazkinek gogoak ematen dienean joko dute bertikalera. Josu Zabaleta

Bi erakundeek talde bat sortu dute Gipuzkoako **Ehiza** Federazioaren barruan. Berria - Euskal Herria

Lerak, oinetako erraketak, eskularruak, **ehiza** tresnak, ume jostailuak, lera txakurrak eta enparauak. Joseba Sarrionandia

Zenbait **ehiza** fusil baizik ez zituzten izango hasieran, eta, beraz, guardiako postuak berenganatu behar lehenbizi. Karlos Zabala

Ehiza eskopetak edo halako armak udaletxera eraman behar ziren. Joseba Sarrionandia

Labana luzeak eta makila mardulak eskuetan hartuta, eta batzuek **ehiza** arkuak ere bazeramatzaten. Agustin Otsoa

-Tentaldi madarikatua! -oihukatu zuen Pepponek, **ehiza**-zorrotik erbia atera eta urrutira jaurtiz. Koldo Biguri

Ehiza bide handi batetik jo dut, eta gero La Bouillerantz hartu dut, bide estu batetik. Josu Zabaleta

ehiza-irrikaz dagoen lehoiaren antzera.

Bazkarian -mahai bat prestatu zitean basoan- hirira itzulia hintzela esan zidaan hire **ehiza**-erakusleak. Xabier Olarra

Etxearen ondoan zakurtegiak zeuden: bertan brakoak, usna-zakurrak zeuden; **ehiza**-hegaztizaina etxe berean bizi zen, bere hiru belatz txanotuekin. Xabier Olarra

Haragi puskak, **ehiza** xerrak, arrain buruak edo isatsak, barazkiak, hestebeteak, baita azkenburukoak ere. Karlos Zabala

Ehiza-arropa ere habe horretako iltzetik zintzilikatzen badugu... Joxemari Urteaga

Indarrean dagoen **ehiza** legearen arabera. Berria - Harian

Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utzi du **ehiza** denboraldia. Berria - Harian

Itsas txakurren **ehiza** kanpaina abiatzeko. Berria - Gaiak

Ohartuko zara bestela ezinezkoa litzatekeela gure kideentzat zenbait **ehiza**-ekintzatan parte hartzea. Iñaki Mendiguren

Soinu bakarrak lehorreko abere gautarrek beren harrapaketa eta **ehiza** saioetan egindakoak ziren, damurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Odolak beti zikintzen zian **ehiza**-txamarra. Xabier Olarra

Ehiza trofeo haiek. Joan Mari Irigoien

-Haien artean bada **ehiza** liburu bat ere eta, nahi baduzu, present gisa emanen dizut. Joan Mari Irigoien

Zuhaitz hori besterik ez zuan zutik gelditu, belazearen erdian, **ehiza**-etxetik hurbil. Xabier Olarra

Badira tigreak, sare batean lotu eta zaldiaren gibelaldean eramaiten direnak, **ehiza**-lekuraino. Joan Mari Irigoien

Isaakek maiteago zuen Esau, gogoko baitzuen **ehiza**-jana. Elizen arteko biblia

Goitik behera txukunduko dizkidazue **ehiza**-txakurtegiak, harik eta joan zaitezketela irizten diodan arte. Mirentxu Larrañaga

Ehiztariek beste **ehiza**-mota batera joanak ziren Kubara. J.M. Olaizola "Txiliku"

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Koneju **ehiza** egin dezaten. Koldo Izagirre

Barrura sarrarazi zituen, basurde-**ehizarako** txakur beltz erraldoi bati lepokotik helduta eusten saiatzen zen bitartean. Iñaki Mendiguren

Azeri edo basahuntz **ehiza** ageri zuten margo go goikarriak, plastikozko lore zantar-erdokatsuak. Pako Aristi

Perretxiko-uzta hura eta barraskilo-**ehiza** diru-iturria ziren Tellagorrirentzat, baina nagusia beste bat zen. Koro Navarro

5 *(orobat **ehizi** g.er.)* ehizan atzeman den animalia. ik **ehizaki**.

-Lasai, mutilak, zeren **ehizak** ez baitu saretik alde eginen. Joan Mari Irigoien

Ikusten dutenean basahuntza egarriak eta nekeak akiturik dagoela, deitzen dituzte zakurrak eta lotzen une batean, **ehiza** inguratua eta segurtatua daukatenean. Joan Mari Lekuona

Ehiza erakartzeko kaiolan dagoen eperra bezalakoa harroaren bihotza, zelatari dago zu erori zain. Elizen arteko biblia

Lehoiak harrapatzen eta zatitzen zuen **ehiza**, lehoi-eme eta kumeentzat, harrapakinez betetzen zuen bere haitzuloa. Elizen arteko biblia

Usteltzen hasitako **ehizaren** usain sarkorra. Karlos Zabala

Hala, bada, oihanera joan zen Esau, aitarentzat **ehiza** zerbait harrapatzera. Jose Antonio Mujika

Segadak ipiniz, **ehiza** xeheari eskopetaz segika, **ehiza** larria noiz agertuko zelatan. Karlos Zabala

Gure **ehizarik** guztizkoena, orkatza omen zen, basahuntz, sarrio, zaldi, uro eta abarren artean. Patziku Perurena

Berehala, jainkoren bati esker, nahikoa **ehiza** izan genuen. Juan Kruz Igerabide

Ostrak, arraina eta **ehiza** jan zituzten. Karlos Zabala

Sekretu horrek zeukan, gero eta estuago, gero eta besarkada itogarriagoan, nola sugetzarrak **ehiza**. Iñaki Iñurrieta

6 ***ehizan*** *adlag* ehizatzen.

Bi egun eman zituen basoetan **ehizan**, jauregiko beste hegalean izan zuen lojamendua. Xabier Olarra

Esan hezakean zerbait goiz hartaz; isilik egon hintzen, ordea, elkarrekin **ehizan** ibili ez bagina bezala. Xabier Olarra

Baina **ehizan** zebilena ehizatua izan zen. Joan Mari Irigoien

Ehizan aritzeko egokia izaten da. Jon Maia

Lehoiek ere, **ehizan** ari ez badira, eguna lo ematen dutela irakurria neukan. Gotzon Garate

Piztiek hegan edo **ehizan** ikasten duten bezala, gizonak disimulatzen ikasten du. Patziku Perurena

Hartara, **ehizan** edo arrantzan egin ahal izango zuen. Mirentxu Larrañaga

Ez baitzen komeni herrian inork jakitea basozainak erretore jauna harrapatu zuela baimenik gabe **ehizan**. Koldo Biguri

Ehizan ohitutako jendea da, mendiko piztien uxaldiak egiten dituzte. J.M. Olaizola "Txiliku"

Elefante-**ehizan** ibili ziren Niloren eta itsasoaren artean diren lurraldeetan Iñaki Iñurrieta

7 ***ehiza egin***

-Munduan ikusi dut jendea **ehiza egiten** eta tiro egiten, bai arkuz bai arkabuzez. Joan Mari Irigoien

Jakin zuenean ezen printze eta bertze noble batzuk, hango eta hemengo gorteetan, baita Nafarroakoan ere sasoin batean, tigreaz baliatu izan zirela **ehiza egiteko**, bururatu zitzaion ezen bera ez zela gutiago eta tigre haietarik bat ekarri behar zuela Urbainerat. Joan Mari Irigoien

-Belatzarekin **ehiza egitera** etorri gara. Xabier Aranburu

Estatu Batuetakoek **ehiza** Haitz Mendietan **egiten** dute. Pello Salaburu

Arrantzale eta ehiztari herri honetan, **ehiza egiten** duen eta sareak zabaltzen dituen armiarmak herritartasun eskubidea dauka, bere etxean dago. Koldo Izagirre

Hura, ordea, zuek guztiok batera baino **ehiza** gehiago **egindako** baten semea zen. Josu Zabaleta

8 irud/hed

Eta iduritu zitzaidan ezen zu zinela han segada prestatu zuen ehiztaria, eta ni **ehiza**, zuk segadan atrapatua. Joan Mari Irigoien

Aipatu bi elkarteak izan ezik, nor zutitu da giza-**ehiza** honen kontra, nor lurrean kondenatutako langile hauen alde? Iñigo Aranbarri

Ez bat, ez bi, Giomarrek bere burua eskaini zuen **ehiza** hartan amuarena egiteko. Martin Anso

Hala joan zitzaizkidan bortz-sei urte haiek gisa hartan, plazer haien **ehizan**. Joan Mari Irigoien

Honezkero Karibe aldeko urak ez dira otso-talde modura biltzen izan diren U-itsaspeko haien **ehiza** libreko ardi-zelaia. Edorta Jimenez

Homosexualen aurkako legezko **ehizak** ehiztari zintzo bihurtua ninduen: harrapakinaren deskuidu baten zain-zain egoten nintzen. Anjel Lertxundi

Fosilen **ehiza**-garaia zen hura eta Charles Dawsonek beste edozeinek baino ehiztari trebeagoa izan nahi zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Antzinako garaietan egiten ziren esklabo **ehizak** bezala! Josu Zabaleta

Gainerakoa ez dago aipatu beharrik: boto-**ehiza** aspaldian zabalik badago ere, deialdia zabalduz gero, **ehiza** basati bihurtuko da. Migel Angel Mintegi

Gizonen aurrean, igualen artean, beste arrei, norberaren baliokideei erakusteko **ehiza**. Lourdes Oñederra

Hirurak eta laurden arte poteoan ibili gara Iñaki eta biok, Donostiako Parte Zaharreko pintxorik onenen **ehizan**. Iban Zaldua

9 ***ehiza hegazkin*** *(orobat **ehizahegazkin** g.er. eta **ehizegazkin**)*

Nahikoa zen hori **ehiza hegazkinak** airera ez zitezen. Ehiza **hegazkin** baten erasoa izan zuen. Harkaitz Cano

Bonbardaketariek herria txikitu ondoren, ihesari eman ziotenak metrailatzeari ekin zioten **ehiza-hegazkinek**. Lutxo Egia

Sei ehiza **hegazkin,** sei, aurre-ezkerrean! Josu Zabaleta

Herenegun etsaien **heizahegazkin** batek alemanen beste **heizahegazkin** bat metrailatu zuen gure hiriaren gainean, eta hegal bat kendu zion. Fernando Rey

Eguerdirako **ehizegazkin** bik Gernikaren gainetik hegaldi bat egin zuten, behaketarako eta jopuntuen argazkiak egiteko. Edorta Jimenez

C-101 **ehiza hegazkinetako** pilotu izango direnak. Berria - Euskal Herria

10 ***ehiza eraiki*** ehizagaia, dagoen tokitik aterarazi.

Zeinek eraikitzen die **ehiza**, zeinek isil-isilik hegaztiaren ondoan gelditu eta botatako zozoa, birigarroa edo. Gotzon Garate

10a ***ehiza lagun*** *(orobat **ehizalagun**)*

Handik aurrera, Mikel semea, hamaika urtekoa, beti eraman zuen **ehiza lagun**, *ragatina* eskuan, sardea alegia, aitari laguntzeko prest, zeinak ganibeta zeukan arma bakarra. **Ehiza-lagunak** albait hoberen armatuta zetozen, artzain eta arrantzale baketsuak zirela kontuan hartuta. Karlos Zabala

Bezperan elkarrekin afaldu genian, familian, nire emaztearekin, ahaide eta **ehizalagunekin**, hamarkadatan eguneroko gonbidatu izana hintzen jauregian. Xabier Olarra

11 ***ehiza leku*** *(orobat **ehizaleku**)*

Ez **ehiza-leku** batera, ez hartzak ugariak ziren tokira, ez mortsak umatzen ziren labarretara... J.M. Olaizola "Txiliku"

Urnietako gidariak esan bezala, **ehiza-lekuetara** igo ginen. -Badira tigreak, sare batean lotu eta zaldiaren gibelaldean eramaiten direnak, **ehiza-lekuraino**, non laxatzen baitira, ehizaren gibeletik egin dezaten. Rafa Egiguren

Nola ez ikus ordea, Iparraldeko euskaldunok udatiarrei irekitzen genizkielarik gure etxe pollitak eta kanpotiar dirudunei saltzen gure **ehiza-lekuak** edo baserri xuri pollitak, Jaun maniako horrek **ehizalekua** aldatu behar izan zuen, zinema aretoak utzita. Piarres Xarriton

Izan ere, ez al dago tribuaren liburuan idatzita itsasoan ez dagoela **ehiza-leku** zoriontsura joateko biderik? Julen Gabiria

12 ***ehiza postu***

Urrunean eraikin baxu batzuk, han-hemenka **ehiza postuen** antzeko eraikinak, ertzak, dorreak, tximiniak igartzen nituen. Urtzi Urrutikoetxea

Baraibarko pilotari ohia Aralarko San Migel elizetxeko inguruetan duen **ehiza postutik** gertu dagoen 20 metroko amildegi batetik jausi zen. Berria - Kirola

Baraibarko pilotari ohia Aralarko San Migel elizetxeko inguruetan duen **ehiza postutik** gertu dagoen 20 metroko amildegi batetik jausi zen. Berria - Kirola

13 *ehiza txakur* *(orobat **ehiza-zakur** eta **ehizakur** g.er.)*

Banekien zer-nola sentitu behar duen azeri batek bere gordelekuan ezkutaturik, **ehiza-txakurrak** kanpoan zain dituela jakinda. Mirentxu Larrañaga

Sarritan **ehiza-txakurrek**, lo gozoan, bat-batean hankei eragiten eta ahausi egiten dute eta sudurretatik arnasots bizian hasten dira, ehiziaren arrastoa aurkitu eta segika bailihoazen. Xabier Amuriza

Sudurra luzatu zuen haiengana, **ehiza-txakurren** uxar egiteko modua imitatuz. Pedro Alberdi

Hotzak bildu zuen haizea bat-batean, **ehiza-txakurraren** zaunkak hirugarren tiro batek isildu zituenean. Joxemari Urteaga

Harrezkero begikoa izan diat beti **ehiza-txakur** eme hori. Mirentxu Larrañaga

14 *ehiza toki* *(corpusean **ehizatoki** soilik)* irud/hed

Hogei urte lehenago txabiske zikin bat zen "Purple", erdiguneko gure ohiko **ehizatokietatik** at neska "errazagoen" bila antolatzen genituen espedizioen jomuga. Aingeru Epaltza

-Hauxe duk, beraz, hire **ehizatokia**. Aingeru Epaltza

15 *ehiza-zain*

Atalondora sartu zen, freskurara, eta **ehiza-zainari** makila eta kapela eman zizkion hitzik esan gabe. Xabier Olarra

Otsailean, izozteek otsoak jaitsarazi zituzten mendi zuritutetatik; morroiek eta **ehiza-zainak** sua pizten zuten patioan, eta piztiek uluka eta suari itzulinguruka jarraitzen zuten, sorgindurik. Xabier Olarra

Harako hartan, hartza jaitsi eta gero, bailaran leher eginda erori ninduan elurretan, eta lo gelditu ninduan: **ehiza-zainek** aurkitu ninditean, erdi izozturik, hartz hilaren ondoan. Xabier Olarra

Egoera perfektoa zuan, ez zegoan lekuko bakar bat ere, **ehiza-zaina** urrun zebilean, basoaren erdian, zakurrarekin. Xabier Olarra

16 *sorgin ehiza* oinarri politiko edo ideologikoa duen esetsaldia.

Antiamerikar Jarduerei Buruzko Batzordeak, McCarthy ospetsuaren **sorgin ehiza** bideratu zuen harexek, Gustavo Durani ekin zion. Edorta Jimenez

Sorgin-ehiza sekulakoa zen, Joseph McCarthy senatariaren batutapean, eta askatasuna aitzakia bihurtu zen askatasun oro zapaltzeko. Fernando Morillo

«Aberriaren zimendu moralak hondatzeaz» salatu zituzten intelektual taldeen kontra aurrera eramandako **sorgin-ehiza** ospetsua, historia maiz errepikarazten baitute hainbatek. Berria - Kultura

Bere kontra abiaturiko **sorgin ehizaren** inguruan zalantzarik ez du [...]: «Jakina da gehiegikeria honen atzean Alderdi Popularraren hauteskunde interesak daudela». Berria - Kultura

Juan Carlos Goienetxek salatu du EAren Zuzendaritzak alderdiko kritikoen kontrako **«sorgin ehiza»** hasi duela. Berria - Euskal Herria

Gazteen aurkako **«sorgin ehiza»** salatu du Segi erakundeak. Berria - Euskal Herria

Guardia zibilek herritarrak ondo ezagutzen zituzten eta **sorgin ehizari** ekingo zioten laster. Jon Maia

Sinistu nahi nuke asko eta asko garela ETArekin nazka eginda egonagatik ere argi eta garbi daukagunak **sorgin-ehiza** ez dela konponbidea, gure arteko su etenik gabeko hau ezin dela egurrez estali. Joxerra Garzia

· Asmatzeko zer ote ziren Joana Arkekoaren edo Savonarolaren denboretako inkisidoreak, bai eta zer izan behar zen de Lancre jujearen eta Etxauz apezpikuaren Euskal Herrietan, estatuek eta Erromako elizak, eskuz esku, zerramaten **"sorgin ehiza"**. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabako ehiza (6); **arabako ehiza barrutien** (5); **aurkako sorgin ehiza** (3); **baina ehiza** (4); **bere ehiza** (3); **beti ehiza** (3); **dute ehiza** (4); **edo ehiza** (4); **ehiza barrutiak** (3); **ehiza barrutien** (7); **ehiza barrutien elkarteak** (5); **ehiza debekatu** (6); **ehiza denboraldia** (5); **ehiza egiteko** (3); **ehiza egiten** (3); **ehiza eta** (19); **ehiza eta nekea** (6); **ehiza ez** (6); **ehiza federazioaren** (3); **ehiza hasi** (4); **ehiza hegazkin** (9); **ehiza hegazkinak** (10); **ehiza hegazkinek** (8); **ehiza mota** (3); **ehiza salatu** (3); **ehiza trofeo** (4); **ehiza txakur** (6); **ehiza txakur eme** (3); **ehiza txakurraren** (4); **ehiza txakurrek** (3); **ehiza zaina** (5); **ehiza zainak** (6); **ehiza zakur** (13); **ehiza zakur bat** (3); **ehiza zakur batek** (3); **ehiza zakurra** (3); **ehiza zakurrak** (3); **ehiza zakurren** (4); **erdiko ehiza** (5); **eta ehiza** (26); **etsaiaren ehiza** (3); **ez ehiza** (3); **gipuzkoako ehiza** (4); **giza ehiza** (3); **haren ehiza** (3); **kalahari erdiko ehiza** (5); **kontrapasa ehiza** (3); **sorgin ehiza** (25); **zuen ehiza** (11)

baimenik gabe ehizan (3); **edo ehizan** (6); **ehizan ari** (11); **ehizan aritzen** (4); **ehizan bezala** (3); **ehizan edo** (5); **ehizan edo arrantzan** (3); **ehizan egin** (3); **ehizan eta** (4); **ehizan ibili** (13); **ehizan ibiltzen** (4); **ehizan jardun** (3); **ehizan zebilen** (4); **ehizara ateratzen** (4); **ehizara irten** (3); **ehizara joan** (6); **ehizara joateko** (5); **ehizara joaten** (8); **ehizarako eta** (4); **ehizarako jantziak** (3); **ehizarat joan** (3); **ehizaren gibeletik** (4); **ehizaren legea** (4); **ehizari buruzko** (5); **ehizari buruzko** (5); **ehizean iaioak** (3); **ehizean ibiltzea** (3); **espainiako ehizaren** (3); **eta ehizan** (6); **eta ehizara** (5); **eta ehizarako** (4); **etapa ehizean** (6); **etapa ehizean iaioak** (3); **gabe ehizan** (3); **isileko ehizan** (5); **isilpeko ehizari** (3); **isilpeko ehizari** (3); **sorgin ehizak** (3); **sorgin ehizan** (5); **sorgin ehizaren** (5); **tigre ehizan** (3)

---

ehizagai *iz* ehizatua izateko gaia.

Bertako arduradun batek prostitutak animalia basatiak direla esan zuen, eta **ehizagai** bihurtu diren animalia guztiek aldatu dutela euren bizimodua harrapatuak izan ez ditezen. Pako Aristi

-Erran dizuedan bezala, bada, tigre honek antilopeak eta ostrukak zituen **ehizagai** Afrikako ordokietan. Joan Mari Irigoien

Poesia ez da niretzat **ehizagai** hutsa. Pako Aristi

---

ehizagarri *izond* ehiza daitekeena, ehizatzeko modukoa.

Untxia baino handiago den edozer da **ehizagarria** Paristik etorritakoentzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

ehizahegazkin ik **ehiza 9**.

---

ehizaki *(orobat **ehizakin** g.er.)* **1** *iz* ehizan atzeman den animalia.

Sukaldeko arasak hegaztiz eta bertze hamaika **ehizakiz** beterik. Joan Mari Irigoien

Ehizaki bila abiatu zen belatza. Xabier Aranburu

Ehizakia zatitu eta etxera darama afaltzeko, Maddik berak gustura jango duelakoan. Martin Anso

Birena baita munduaren sorrera: harrapakina bilatzen duen ehiztariarena eta ehiztariaren etsipena lortu nahi lukeen **ehizakiarena**. Pako Aristi

-Emadak jaten **ehizakia**, seme, eta bedeinkatuko haut. Jose Antonio Mujika

Ehizakia ondo kontserbatzen da bertan astebetez. Itziar Otegi

Arlo emankorrak luberritu eta zelaiak belardi bihurtu, edo piztiak hil eta **ehizakiz** aberastu nahi zutelako. Xabier Amuriza

Bizirik ekartzen duten **ehizakia** nik akabatzen dut, eta zuk lumatuko duzu, arreba Ernestinarekin batera. Itziar Otegi

2 irud/hed

Baionako etxea aurkitu, goiko pisuan Mauser 66a muntatu eta itxaron zure **ehizakia** agertu arte. Sonia Gonzalez

Noizean behin gora begiratzen bazuen ere, **ehizaki** erraza zirudien; balkoitik tiro egin, eta kito: lehenengo solairuan bizi naiz. Iban Zaldua

Ehizaki bat sareratzen zuelarik, zenbait egunetan maitalearena egiten ibili ohi zen, bikain ibili ere bere eskarmentu luzearen eta artasun sendoaren laguntzaz; eta **ehizakiak**, laxaturik, konfiantza guztia harengan ezartzen zuelarik, denbora laburrean baino ez zion atsegin ematen; eta orduan finkatu egiten zuen bere nagusitasuna. Patxi Zubizarreta

Ez du **ehizakia** izutu nahi bere arma bakarra, idazluma, maitasunez kargaturik dakarren ehiztari honek. Pako Aristi

Haien **ehizaki** -begiratu liluratuak, bere herio larrian, argi asko azaldu digu dena. Mirentxu Larrañaga

---

ehizakin ik **ehizaki**.

---

ehizakur ik **ehiza 13**.

---

ehizalagun ik **ehiza 10a**.

---

ehizaldi **1** *iz* ehizatzen den aldia.

Amaitu dira otsoak, eta amaitu **ehizaldiak**. Edorta Jimenez

Beste **ehizaldi** bat antolatuko dugu, eta, gau erdian, isil-gordeka eta mozorroturik itzuliko gara jauregira. Patxi Zubizarreta

Erregeak nekez eman baitzion egun bateko **ehizaldia** egiteko baimena. Patxi Zubizarreta

Markesa zen, afaltiarren artean, **ehizaldi** hartan parte hartu ez zuen bakarra, hark ez baitzuen inoiz ehizan egiten. Josu Zabaleta

Bai, **ehizaldian** jakin nian hori guztia. Xabier Olarra

Nik uste, ez zegok ezer egunsenti haiek, **ehizaldietako** goiz haiek baino gehiago gozarazi didanik. Xabier Olarra

Ea goiz hartan, **ehizaldian**, benetan ni hiltzeko asmoa izan huen. Xabier Olarra

Animalien eskubideen aldeko erakundeek **ehizaldiaren** aurka egin duten arren, Gobernuak «beharrezkoa» dela nabarmendu du. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ehizaldi antolatuagoak, zakur ikasiak, zaldi gainean doazen zaldun dotoreak... J.M. Olaizola "Txiliku"

Noizean behin etorri eta bazkaltzera gelditzen ziren bisitariei, udaleko edo probintziako ordezkariei edo **ehizaldi** handietara etortzen zirenei. eskualdeko nekazari pobreek antolatutako **ehizaldi** xumeak dira. Xabier Olarra

Ehizaldia, benetako **ehizaldia**, beste zerbait zuan. Xabier Olarra

3 irud/hed

Ehizaldi bilakatu zen borroka. Aingeru Epaltza

Edergarrien eta aurkikuntza formal hutsen **ehizaldiak** adoretzen du. Anjel Lertxundi

Paristik etorritakoek **ehizaldi** gogorrak antolatu dituzte mendietako makisean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Felix Areitio Ermua eta Patxi Ibarluzea pilotari euskaldunak U-itsaspekoen **ehizaldietan** hilez gero Ameriketako Gobernuak gerrako galeratzat joko zituzkeen. Edorta Jimenez

1943ko udazkena igarota eta U-ontzien **ehizaldi** haren ostean Ernestek Europara egin gura izan zuen, gerra-kazetari jarduteko. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ehizaldi bat** (6)

---

ehizaleku ik **ehiza 11**.

---

ehizatoki ik **ehiza 14**.

---

ehizatu, ehiza(tu), ehizatzen *(orobat **ehiztatu** g.er.)* **1** du *ad* animaliak esetsi, harrapatzeko edo hiltzeko.

Gerra ondoren, berriz, txoriak **ehizatzen** nituen, saltzeko. Jon Maia

Egun hartan orein bat **ehizatzen** arituak ginen. Josu Zabaleta

Ni, zakur begi-bakarra hartuta, goiko zelaietara joan nintzen untxiak **ehizatzera**. Koro Navarro

-Bai, bakarrik joan ohi zen hartzak **ehizatzera** -erantzun zuen Sobakevitxek. Jose Morales

Bazen behin, Lekeition, inoiz existitu ez zen Anacabe izeneko kapitain bat, baleak **ehizatzen** jarduten zuena. Berria - Kultura

Lehenengo oilagorrak **ehizatuak** direla udazkena baino lehen, eta ea prest egongo ote den haiek jateko, onddo beltz batzuen konpainiarekin. Hasier Etxeberria

Txori migratzaileak **ehizatzea** debekatu dute Filipinetan eta Palestinan. Berria - Harian

Osama Bin Ladenen taldearen aurka zuzen ez bazuten jo, Bush «euliak **ehizatzen** aspertuta» zegoelako izan zen, Ricen arabera. Berria - Mundua

Etxeratu bezain pronto, horman zintzilik jarritako oreina eta Afrikan **ehizatutako** piztien buruak hormatik kendu eta zaborretara bota ditu. Harkaitz Cano

Behin, Cabareteko mendian, otsoaren larrua jantzi zuen eta otso itxurak hartuta, artzainek **ehiza** zezatela nahi izan zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tokian-tokian **ehizatzen** dutenarekin konpondu beharko dute zazpi tripulatzaileak. Iñigo Aranbarri

Ez dezagun azeria **ehizatu** aurretik larrutu. Pedro Alberdi

Baina ehizan zebilena **ehizatua** izan zen, uroski. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Azken patata aleak **ehizatzen** eta ardiki saltsatan bustitzen ari zirelarik. Pako Aristi

Ikusten ez dena **ehizatu** nahi omen du pinturan. Hasier Etxeberria

Ez duela errealitatearen azala **ehizatu** nahi. Hasier Etxeberria

Komunikatzeko eta neska edo mutilen bat **ehizatzeko** sistema bat besterik ez da. Harkaitz Cano

Beti ihesean dabiltzan mutilak **ehizatu** nahi ditut nik. Bernardo Atxaga

Eskema nagusia Habanan kontrainteligentzia erakundea atontzea zen, horren bidez Kuban ziri-ziri sartzen ziharduten naziak eta bosgarren kolumnistak **ehizatzeko**. Edorta Jimenez

Ez genuke ahantzi behar Baigorriko seme ospetsuak ez zuela arazorik izan auzoko erratzuarren odola isurtzeko nasaiki, ez eta ere Baztan aldera ihesi joanak zituen bere herritarren **ehizatzeko**. Piarres Xarriton

Dominguez helmugatik 2 kilometrotara **ehizatu** zuen faboritoen taldetxoak. Berria - Kirola

Boto nazionalista **ehizatzeko**. Berria - Euskal Herria

---

ehizazale *(orobat **ehiza zale**)* ehizan ariten zalea dena.

Berrogeita hamarren bat urte izango zituen gure zaldunak alde-alde; gorpuzkera azkarra, iharra, aurpegi zimurra, goiztiarra eta **ehizazalea**. Eta nik, **ehiza zalea** ez nintzen arren, nekiena erraiten nion. Patxi Ezkiaga

Ehiza eta arrantza **zalea** naiz. Josu Zabaleta

---

ehizegazkin ik **ehiza 9**.

---

ehizi ik **ehiza 5**.

---

ehizketa *iz* ehiza.

Akusatutakoek egindako azken adierazpenei dagokienez, Gaël Roblinek «sorgin **ehizketa** bat» bezala jo zuen epaiketa. Berria - Mundua

---

ehiztari **1** *iz* ehizean ibiltzen den pertsona.

Ehiztari bat bezala zihoan, makurturik, aztarren bila, zakurrari "Bila, potolo, bila" esanez. Josu Zabaleta

Zeren ez baita egia **ehiztariak** harrapakina eskuratzeko hiltzen duela. Xabier Olarra

Txoriak **ehiztarien** tranpatik bezala gara libratu. Elizen arteko biblia

Zenbait **ehiztari** gauez irteten zen ehizara, esku-argi eta guzti, oilagorrak argira hurbiltzen baitziren. Juan Kruz Igerabide

Bada adarbakoitza izeneko animalia bat, garbia eta garbi zalea, adar bakarragatik guztiz preziatua, baina **ehiztariek** harrapatu ezin dutena. Anjel Lertxundi

Ehiza, ikusi aurrez entzun edo sentitu egiten da, eta hargatik da isiltasuna hain beharrezkoa **ehiztariarentzat**, birena baita munduaren sorrera: harrapakina bilatzen duen **ehiztariarena** eta **ehiztariaren** etsipena lortu nahi lukeen ehizakiarena. Pako Aristi

Garai batean, **ehiztariak** edo arrantzaleak izango ziren. Ander Irizar

Ehiztariek eta larru-saltzaileek galdu dituzte batez ere tigreak. Gotzon Garate

Istillaga anaiak bikiak ziren, mutil-zaharrak, eta **ehiztariak**. Pako Aristi

Ilunpeen bihotzean **ehiztari**, harrapakinaren usnan, hautatu, bereizi, esetsi..., senak agindutako estrategia antzina-antzinakoa jartzen zen martxan. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ehiztari ona beti leinuko lehen gizona izaten zuan, apaizen botere eta maila zuen bat. Xabier Olarra

Ehiztari ehizatua, aspaldiko istorioa duk hori. Aingeru Epaltza

Ehiztaririk onenaren senak ere huts egin zezakek. Xabier Olarra

Hona basamortuko lehoia, bere orroekin **ehiztaririk** bipilena ere izutzen duena. Koro Navarro

Apaiza izateaz aparte, **ehiztari** amorratua zen Mateo, beti zakur gorri batekin batera eta bestera ibiltzen zena. Pako Aristi

Ez nintzen sentitzen Altamirako aspaldiko **ehiztari** urrunetik oso bestelako, harrizko hormetan antilopea margotzen baitzuen, zoria lagun izateko biharamuneko ehizan. Juan Garzia

-Istillaga, **ehiztari** ero bat. Pako Aristi

Benetako **ehiztariak** ordea oreina heriotzera behar du erakarri. Jon Muñoz

Aitak bi urte lehenago ezkutuko **ehiztari** bat hil omen zuen. Josu Zabaleta

Ez al da berezko **ehiztaria**, gizonezkoa? Hasier Etxeberria

Mikel Strogoffek uniforme militar dotore bat zuen jantzirik, zaldizko **ehiztarien** ofizialek gudan erabiltzen zutenen antzekoa. Karlos Zabala

Une hartan Kissoff jenerala barrura sartu eta agudo hurbildu zen guardiako **ehiztarien** ofizialarengana. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arrantzale eta **ehiztari** herri honetan, ehiza egiten duen eta sareak zabaltzen dituen armiarmak herritartasun eskubidea dauka, bere etxean dago. Koldo Izagirre

Zer itxura zeukan, galdetu zion Lilyk bere buruari, hark **ehiztari** kapela buruan sartu-sartu egiten zuenean. Anton Garikano

Hor bidaltzen dizut **ehiztari**-jantzi berde bat, nire andere dukesak niretzat emana; alabaren gona-gorontzak josi itzazu hartatik. Patxi Ezkiaga

-Jaunari oilaskoa **ehiztari** erara. Monika Etxebarria

Eskualde inbadituetan barrena abiatuko ziren, elkarrekin, haien **ehiztari** senak arrasto berari jarraiaraziz gero, edo nor bere aldetik, sen horrek arrasto desberdinen atzetik bultzatzen baldin bazituen. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aspaldiko kortsario, balea-**ehiztari**, agota eta buhameen ondorengoak. Elena Touyarou

Hurbiletik hil behar du, toreatzaileek edo harpeetako bisonte-**ehiztariek** bezala. Poesi ehiztariak sentitzen duena ez da piztia **ehiztaria** mugiarazten duenaren ezberdina: goizean jaiki eta zerbait eroriko delako aurresentipen bortitza. Jon Alonso

Bestela, kirolzalea eta kaio-**ehiztaria** izan zen Juan. Edorta Jimenez

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, irud/hed)

Ehiztari sena baldin badaukazu, aurrera irtengo diozu, agian denbora askoren ondoren, apika gutxien uste zenuen unean, eta hor aurkituko duzu, oso-osorik, lehenago tximista baten irudipenaz abiada hutsean sumatu duzun poema. Pako Aristi

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, irud/hed)

Herrialde anitzetako agente sekretuak, espioiak eta espioi-**ehiztariak**. Alberto Ladron Arana

Irujo ministroak Galindez gau-**ehiztaria** bidali du Madrilera, faxistatzarra bila dezan eta horrela trukea gauzagarri bihur dadin. Edorta Jimenez

Lau zaldunak heldu zirenean -maisu, iloba bat, esklabo-**ehiztari** bat eta sheriff bat-, beranduegi zebiltzala pentsarazi zien Bluestone Roadeko isiltasunak. Anton Garikano

Bat bakarrik zegoen irribarrez, mutil sendo bat, neskazale eta andre-**ehiztari** amorratua, hain finko baitzuen gauza orotarako sinesgogortasuna non ez baitzuen eztabaidarik onartzen. Josu Zabaleta

Hitz-**ehiztari** bat. Iñigo Aranbarri

Bi albiste-**ehiztari** horiei ez zegokien gobernadorearen dekretua, ez errusiarrak ez Asia aldeko atzerritarrak ez zirenez gero. Karlos Zabala

• **7** *izond* ehizean ibiltzen dena.

Eta inuit **ehiztariez** gain (hiru adiskide), ekialdeko groenlandiar bat (Hendrik Olsen) eta bi zientzialari eraman zituen Knudek berekin: Thorild Wulff eta Lauge Koch. Egun hartan ere katu **ehiztaria** eta sagu zirikatzailea bezala aritu ziren aita jesuita eta osaba Joanikot. J.M. Olaizola "Txiliku"

Antropologiak dio herri **ehiztari** eta biltzaileetan ez dagoela klitoria erauzten delako testigantzarik, kultura nekazarietan agertu zela, hau da, jabetza pribatuarekin batera. Luis Elberdin

Saia ez da **ehiztaria**; ez dauka horretarako atzapar, moko, hegada egokirik. Jon Alonso

8 irud/hed

Heinkel 111 eta Junker 52 bonbaketarien eskolta gisa pasatu ohi ziren Heinkel 51 **ehiztariei**. Ramon Saizarbitoria

Kanoia gori-gori jartzeraino aritu zitzaiela hegazkin **ehiztariei** tiroka. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ehiztari (4); **ehiztari amorratua** (9); **ehiztari bat** (12); **ehiztari batek** (21); **ehiztari batek cannelle** (6); **ehiztari baten** (4); **ehiztari baten gisan** (3); **ehiztari batzuk** (3); **ehiztari begirada batez** (16); **ehiztari beltza** (5); **ehiztari elkartearen** (3); **ehiztari eta** (16); **ehiztari eta zakurrak** (4); **ehiztari sena** (3); **ehiztari trebea** (5); **ehiztari trebeak** (3); **eta ehiztari** (9); **eta etapa ehiztari** (4); **etapa ehiztari** (10); **etapa ehiztari trebea** (4); **xabik ehiztari begirada** (16); **zen ehiztari** (3); **zuen ehiztari** (3)

bi ehiztariak (3); **dira ehiztariak** (6); **dute ehiztariek** (3); **ehiztaria eta** (3); **ehiztariak bakarrik** (3); **ehiztariak bere** (4); **ehiztariak eta** (3); **ehiztariak ez** (3); **ehiztariek eta** (3); **ehiztarien artean** (6); **ehiztarien tiro** (4); **eta ehiztaria** (5); **eta ehiztariak** (12); **eta ehiztariek** (3); **eta ehiztarien** (4); **guardiako ehiztarien** (5); **hil zuen ehiztaria** (3); **txerri ehiztariek** (4); **txerritxo ehiztariak** (4); **txerritxo ehiztarien** (5); **zen ehiztaria** (4); **zien ehiztariei** (3); **zuen ehiztaria** (5); **zuen ehiztariak** (3)

---

ehiztariburu *iz* ehiztarien burua.

R. S. Surtees-en Handley Cross eleberri ospetsuko **ehiztariburua** biharamuneko ehizaldirako aukerak aztertzen aritu zen. Irene Aldasoro

---

ehiztatu ik **ehizatu**.

---

eho[1] *(orobat **eiho** g.er.)*, eho, ehotzen *(orobat ehaiten ipar)* **1** du *ad* aleak eta kidekoak birrindu edo haustu, sakatuz, joz edo bi atal gogorren artean iraganaraziz.

Kafea **ehotzen** dut. Itziar Otegi

Errotan **ehotzen** ariko diren bi emakumeetatik, bata eraman eta bestea utzi egingo dute. Elizen arteko biblia

Emazteak neskame bati ehogailu bat hartzeko agindu zion, eta loroaren kaiolapean aleak **ehotzeko**. Patxi Zubizarreta

Alea, nahiz **ehorik**, nahiz besterik gabe azaoka bildurik. Jose Morales

Gero, zoru gainean hozten utzi ondoren, kafe-errota batean **ehotzen** genuen [bisulfatoa]. Juan Garzia

Arnasa hartzen dugun bakoitzean usinka edo eztulka hasten gara, **ehotzen** ari garen piperbeltz pilagatik. Josu Zabaleta

Bere hindu-herrikideei beren kotoia berriro eskuz irun eta **ehotzeko** eskatzean, Gandhi bide bat erakusten ari zitzaien Mendebaldeko ekonomi amaraunaren sare ikuskorretatik libratzeko. Iñaki Mendiguren

Material hori legarraren tamainara **eho**, idortu, eta sailkatu egiten zen. Juan Garzia

Marmola ez da mota berekoa izaten eskualde guztietan, baizik eta leku batzuetan blokeak gatza bezalako pikor distiratsuak dituztela jaiotzen dira; ondo birrindu eta **eho** ondoren lanean erabiltzeko oso egokiak izaten dira. Santiago Iruretagoiena

Berrogeita hamar emakume zerbitzari zebiltzan, batzuk ale gorria **ehotzen**, besteak lihoa ehuntzen. Juan Kruz Igerabide

Ikasi du tristura etxean gorde behar dela, norberaren barruan **eho** behar diren kafe aleek osatuko balute bezala. Pako Aristi

Bertan sutondo bat, 150 gramo basa-labore eta horiek **ehotzeko** harri lau bat aurkitu dute. Berria - Gaiak

Kafe sendo eta trinkoa prestatzen dute, alea xehe-xehe **ehota**. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 irud/hed

Orga hutsak, karrikaz karrika isiltasuna **ehotzen**. Juan Garzia

Gure buruaren errotak banaka-banaka **ehotzen** ditu sentipen negatibook, tortura psikologiko saihetsezin bihurtu arte. Unai Iturriaga

3 (hitz elkartuetan)

Zenbateko laka jasotzen zuten udaberrian eta udazkenean **eho**-lanarengatik. Jose Morales

Marmarren errota da, pentsatzen du, gau eta egun biraka, batzuen eta besteen ospe onak **eho-eho** eginez. Oskar Arana

Kopetan bazerion izerdia esku-gibelaz xukatzen zuen eta ogi-**ehaiteko** makina zaharraren maldara lasterkatzen zen, lana ez baitzen egundainokoan bukatzen. Itxaro Borda

4 ehundu.

Zaydek ate hau zurez moldatu, harresi hau eraiki eta oihal hau **eho** du. Xabier Kintana

Lurralde zoragarri hura eta hango elfoak etorri zitzaizkion gogora, haien eskuek **ehotako** ehunak. Agustin Otsoa

Haren artileaz tunika bat **ehoz**, Frantzisko dohatsuari bidali zioten Portziunkulako Andre Maria elizara Gela haietan **ehotzen** zituzten emakumeek Axera jainkosaren irudiei aterpeak egiteko oihalak. Askoren artean

Neskak irazkian **ehotzen**, mendi urruna ketan, eta marruka idi gorria. Patziku Perurena

Mantu gris luzeak, fineziaz **ehoak**, lepoan orratz ederrekin lotuta. Agustin Otsoa

Ehotzen amaitu ondoren, ehuleak mozten duen ehunaren antzeko da nire bizia. Elizen arteko biblia

Würzburg aldeko inguruetan, artemisia edo zizare-belarrez eta berbenaz **ehotako** koroak zeramatzaten buruan gazteek. Pello Zabala

Nola dezakeen ehuleak piru bakarreko irazkiarekin hari anitzeko bilbea **eho**? Piarres Xarriton

Orduan dibertsio alaiak burua eta sorbaldak lorez eta hostoz **ehotako** girlandaz jazteko eskatzen zien. Xabier Amuriza

Ehaite, marrazketa, tindatze... Herria

5 irud/hed

Hortik datoz glosei erantsi oharñoak, gero barreiatuak direnak Azpilkuetaren beraren idazlanen irazkia **ehotzen** duten "Notabilia" ohargarrietan. Piarres Xarriton

Beti bakebide izan behar duen politikaz **eho** dudan saio xume hau Karlos Santamaria donostiar bakegile handiari eskaintzean, [...]. Piarres Xarriton

Bai horixe, filosofia sakona eta bizitzari begira **ehotakoa**. Pello Zabala

Berriro ekin zion bere istorio amaigabea **ehotzeari**. Jose Morales

---

eho[2], eho, ehaiten **1** da/du *ad ipar* hil.

Herri ordezkariek herriratu bezain sarri gillotina pikoan eman zutela eta jadanik bi pertsona **eho** zituztela, haietarik bat [...] apez menperagaitz bat zelarik. Elena Touyarou

Erdi Aroan, François Villon giltzapealatü züen, haatik ez arrazurik gabe: gizon bat, apez bat **eho** züan, eta gero armekiko ohointza bat egin Pariseko nafar ikastetxean. Herria

Ez bere burua ez beste nehor **eho** ez dezan, burdinez loturik presondegian ezarri den ero amorratuaren kasuan. Piarres Xarriton

Harri batez bi zozo **ehoz**. Itxaro Borda

Txoria **eho** eta eskua gordeka ari dena. Itxaro Borda

Beribil eroek kolpez **eho** eta bidean hilotz luze dagoen azeri gaixoa. Itxaro Borda

Gorbernuak egin dituen ikerketa batzuen arabera, Madurai probintzian sortzen diren nesken erdiak **ehoak**, hilak izaten dira. Gotzon Garate

Lehenago hila ala han bertan **ehoa**? Gotzon Garate

Gau batez aizkoraz **eho** zuen gizona. Gotzon Garate

Gerard eta Martin, Provence aldeko bi adiskideak **ehoak** izan ziren; kapitainak bat-batean ez higitzeko eta tiroei ez ihardesteko ordena eman zuen. Itxaro Borda

Aitak **ehoko** nau. Janbattitt Dirassar

Elür tenpesta baten gatik hamarrak kokatürik dira Iratiko etxola hortan, eta hor banazka banazka **ehorik** dirate. Herria

2 itzali.

Matelan ireki zaurian zigarroa **eho** zion taldeko lehen gizonak. Itxaro Borda

Dutxara joan aitzin Agatak irratia **eho** eta KD irakurgailua piztu zuen, ilunak iluna ausikari, Michel Portalen Minneapolis albumeko jazz ahaireak hegaldaraziz. Itxaro Borda

Mugikorra **eho** nuen, metroaren erroten azpira aurtikitzeko keinua menperatuz. Itxaro Borda

Autoaren ilunean, musika **eho** zuela, hori guztia preseski zeukan bihotzean iltze herdoildu, aitaren isiltasun mingarriaren mailuaren pean. Itxaro Borda

Perpaus egokiak apailatuak nituela irudikatu bezain laster, beribila plazan kokatu eta motorra **eho** nuen. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan)

Baina, haurraren sortzea ez zen urde- **ehaitea**, hor misterio bat gehiago bazela aitortu zuen bereber neskato herabeak. Itxaro Borda

Xarlesek zaldi **ehaiten** gordeka higatu urteak bihikatu zituen: sosa ederki sakelaratzen zuen eta arditen dardaraz edozein neska txirikorda zezakeen, oldar ez zitezkeen itsusienak barne, neskek diruaren ohorea baizik ez zutela begiko sinetsirik. Itxaro Borda

---

ehogailu *iz* ehotzeko gailua.

Lantokia urjauzi-tankeran eraikia zen, muinoaren malkarrari jarraiki eta galeriaren bokaletik beheraxeago: han minerala **ehogailu** munstrokara batean xehetzen zen. Juan Garzia

Emazteak neskame bati **ehogailu** bat hartzeko agindu zion, eta loroaren kaiolapean aleak ehotzeko. Patxi Zubizarreta

---

ehogune *iz* ehotzeko gunea.

Eta gauza asko osorik eta ezer kendu gabe zeharkatzen ditu, su likidoa poroetatik airean pasatzen delako, eta beste asko zulatu egiten ditu, oinaztuaren gorputzak eurak gauzen gorputzen gainera, euron **ehogunera**, jausten direnean. Xabier Amuriza

---

ehortz ik **ehortzi** 6.

---

ehortzaile *iz* ehorzlea.

Nahi izanez gero ehortzi, komeniko litzateke gaur eguerdian guri esatea, guk **ehortzaileari** ordu bat esateko. Pablo Sastre

Yun ziren zoin bere etcherat Agoten **ehortzaileak**, bihotzak arin zeren eta segur ziren hantik harat bakean biziren zirela. Herria

---

ehortzarazi, ehortzaraz, ehortzarazten du *ad* ehorztera behartu.

Ptolomeo erregeak, jeneralaren gorputza berreskuratzea lortu, eta hirian **ehortzarazi** zuen. Jon Muñoz

Bere bitxiekin, eskumuturrekoekin, idunekoekin, eraztunekin, niregandik jasotako opari guztiekin, eta bere lehen dantza soinekoarekin **ehortzarazi** nahi izan nuen. Josu Zabaleta

---

ehortze *iz* lur ematea, lurperatzea.

Ehortze: Abendoaren 3an, lagundu izan da azken egoitzarat Frantxua Goyenetxe Arrigaraikobordakoa. Herria

Diska hau nahi nuke, ene **ehortze** egunean, eman dezazuen. Menane Oxandabaratz

Ehortze elizkizuna egin da astelehenean Donostiako Artzain Ona katedralean, ainitz artista zaudelarik han bildurik beren lagunari azken agurra eskaintzeko. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
donaixti ehortze (3)

---

ehortzelari *iz* ehortze batera joaten dena.

Itxuraz, dena finitua zen, altzifreen artetik zelatatu bainuen **ehortzelarien** itzulera. Aingeru Epaltza

---

ehortzeta *(**567** agerraldi, **4** liburu eta **51** artikulutan; ETCn **148** agerraldi; orobat **ehorzeta** g.er.)* **1** *iz pl ipar* ehorzketa.

Monacon Rainier III zenaren **ehortzetak** errespetu eta grado haunditan eginik, horra Albert II printzeak, zenduaren semeak hartuko duela segida. Herria

Joanes Paulo II Aita Sainduaren **ehortzetak** Erroman, mundu osoan zabaldurik gaurko media guzieri esker. Herria

Astelehen huntan, bere bururik aipatu ez duen andere baten **ehortzetak** ziren hor. Herria

Ehortzeta horiek osoki beroak izanak dira, palestinar guziek hunkitu edo hurbildu bederen nahi kutxa hura. Herria

1905eko urriaren 26an gertatuko dira saindu baten famarekin zendu berri den aita Frantzisko Laphitz Arriadaren **ehortzeta** jendetsu hunkigarriak. Herria

Hemen bizi zen egongia ttipi batean Jeanne Yvonne Lobe sortzez Lagreulet 88 urte zituen eta **ehortzetak** eginak izan dira joanden ortzegunean. Herria

Ehortzetarik etxeratu ondoan zen ezin sinetsia, ohartzean elizkizun denboran etxea ikertu zela eta dirua eta balioko gauzak ebatsi zirela. Herria

Ehortzetako elizkizunak Irisarri Arrosako Laurent Pochelu jaun erretorak zituen bere gain, prediku pollit bat barne. Herria

Horiek guziak zirela medio, mundu bat bazuen bere **ehortzetarako** jina. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Omenaldi hona egin deio honek lau kantorez **ehortzeta** mezan. Herria

Ehortzeta egunean hor zituen Suhuskundarrak, gizontsu, bainan ama familiako eta beste emazteak ere leialki etorriak. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ehortzeta horietan (4); **zenaren ehortzetan** (3)

---

ehortzi, ehortz, ehorzten *(orobat **ehorzi** g.er.)* **1** da/du *ad* hila lurpean sartu eta lurrez estali. ik **lurperatu 3**.

Lehorrean **ehortzia** izateak edo gorpuari lurra gaineratzeak, hildakoaren arimari betiko atsedena zekarkion. Patziku Perurena

Ehortz nazazue neure gurasoen ondoan Kanaan lurraldean, Efron hitiarraren soroko harpean. Elizen arteko biblia

Zeure gurasoengana bilduko zaitut, eta bakean **ehortziko** zaituzte zeure hilobian. Elizen arteko biblia

Hil zenean, bere aita Daviden Hirian **ehortzi** zuten. Elizen arteko biblia

Buruzagi handi zara zu gure artean: **ehortz** ezazu, ba, zeure hila gure hilobirik bikainenean. Jose Antonio Mujika

Ehortz hadi bizirik harekin, eta berdin diat nik egingo. Juan Garzia

-Zoaz eta **ehortz** ezazu aita, zin egin diozun bezala. Jose Antonio Mujika

-Nik ere, hiltzen garenean elkarrekin **ehortz** gaitzaten nahi nuke. Ramon Saizarbitoria

Jonatan, Modin hirian **ehortzia**. Elizen arteko biblia

-Non **ehortzia** duzue? Daniel Landart

Hilobi komunean **ehortzi** baitzuten Benito hil zenean. Ramon Saizarbitoria

Haren aurpegia, haren ile motots sarria, haren masailbizarrak, urrutiko haurtzaro batetik ari zitzaizkidan itzultzen, ustez aspalditik **ehortzia** neukan haurtzaro batetik. Matías Múgica

Apollinaire **ehortzita** dagoen lekutik hurbil. Ramon Saizarbitoria

Familiakoak Jehova-ren lekukoak izanki, elizkizunik gabe **ehortzi** dute larunbatean. Herria

2 (adizlagunekin)

Egizu kontu bizirik **ehortzi** genuela haur hau! Josu Zabaleta

San Damiango Andreen dolumina, eta nola gorespenez eta aintzaz **ehortzi** zuten. Askoren artean

Hogei urte inguruko neskatila ederra zela erabaki dute, erramu hostotan eta beste hainbat seinale dotoreren artean bildurik **ehortzi** zutena. Hasier Etxeberria

Esadak, esan, zergatik hire hezur eraz **ehortziok**, herioren hesipe, beren hiljantziak dituzten urratu. Juan Garzia

Ohore handiz **ehortzi** zuten. Elizen arteko biblia

3 lurperatu.

Zangoa **ehortzi** ondoren burua altxatu omen zuen lekua finkatzeko. Ramon Saizarbitoria

Katua **ehortzi** zuen lehenik. Joan Mari Irigoien

Izan ere, lohadarretan arima zatirik bat ere geratuko ez balitz, ilindia hauspean **ehortzirik** ezkutatzen denez, zertatik liteke sentimena bat-batean lohadarretan isio, garra hausberotik bezala? Xabier Amuriza

Ulertzen nuen lehendabiziko bultzada, eskuzabaltasuna erakusten zuena, eta are gehiago ondorengo damua, poema **ehortzitakoekiko** obsesioa. Ramon Saizarbitoria

Hosto-pila baten azpian **ehortzi** nuen. Mirentxu Larrañaga

4 irud/hed

Benetan onartzen ote du erru hori, edo itxurak egiten dabil, kasua paperen artean **ehortzi** eta ahaztuko den itxaropenarekin? Oskar Arana

Yonkers-en **ehortzi** nian nik neure haurtzaroa. Lopez de Arana

Legea **ehortzi** arte borrokatuko direla diote ikasleek. Berria - Ekonomia

Harekiko ene gibel asmo goibelak **ehortziz**, irriz urratu nintzen. Itxaro Borda

Arrazoi zuen Joanesek: mintzatzeko gaitasuna **ehortzi** zidatelako, ez nintzen benetako militantea izaten ahal. Itxaro Borda

Zuengan, bitartean, emozioa ezinezkoa da, hil egin duzue emozioa, hitz zaparrada baten pean **ehortzi** duzue, milaka tona sintagma gainetik ezin kendurik dabilen gaixoa da, zuengan, emozioa. Jon Alonso

Aho zabalik gelditu nintzen, seko hilda, zutik **ehortzita**, trena nire parean ziztuan ateratzen zen bitartean "gabon" esateaz batera. Fernando Rey

5 (era burutua izenondo gisa)

Bihotz **ehortzia** berpiztu zenekoa. Berria - Kultura

Bihotz **ehortziak**, halere, gertu daude, egun berriaren argia noiz helduko zain. Berria - Kultura

6 ***ehortz*** *(orobat **ehorz**; hitz elkartuetan lehen osagi gisa)*

Egiaz neskak ez zuen ulertzen zergatik euskarazko **ehortz**-elizkizunetan, tristezia larriaren aztaparretan behera amiltzeko ordez, abesteko gutizia oldartzen zen herritarren bihotzetan. Itxaro Borda

-Frantsesezko **ehortz** meza jasan baino, nahiago dut sekula ez hil. Itxaro Borda

Mont de Marsan hirian **ehorz**-meza eder eder bat ukan du René Bellecave, Thérèse Minaberryren senarrak. Herria

Barrualdean daude **ehorz**-ganbarak. Joxe Austin Arrieta

7 ***ehortzi berri*** *(orobat **ehortziberri**) izond*

Hau ere nahi dugu aipatu badituguala Basaburun 3 presuna **ehortzi berriak** : [...]. Herria

Esan zuen gorpu **ehortziberri** batek. Iñaki Arranz

8 ***ehortz-leku*** ik **ehorzleku**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere ehortz (4); **da ehortz** (3); **ehortz egunean** (21); **ehortz egunean eliza** (5); **ehortz elizkizunak** (3); **ehortz ezazu** (3); **ehortz meza** (7); **ehortz mezan** (5); **ehortz nazazue** (4)

aita ehortzi (4); **arbasoen ondoan ehortzi** (5); **artean ehortzi** (3); **aste huntan ehortzi** (5); **astean ehortzi** (8); **astean ehortzi dugu** (5); **asteartean ehortzi** (3); **azpian ehortzi** (3); **batean ehortzi** (4); **bertan ehortzi** (7); **bertan ehortzi zuten** (4); **bidean ehortzi** (3); **bizirik ehortzi** (5); **daviden hirian ehortzi** (12); **ebiakoitzean ehortzi** (3); **ebiakoitzean ehortzi dugu** (3); **ehortzi behar** (8); **ehortzi dugu** (35); **ehortzi dugu iragan** (3); **ehortzi dute** (11); **ehortzi edo** (3); **ehortzi eta** (8); **ehortzi eta gero** (3); **ehortzi ezazue** (8); **ehortzi ezazue ene** (8); **ehortzi genuen** (7); **ehortzi nahi** (7); **ehortzi nuen** (7); **ehortzi ondoren** (3); **ehortzi zituzten** (15); **ehortzi zuen** (9); **ehortzi zutela** (4); **ehortzi zuten** (97); **ehortzi zuten arte** (3); **ehortzi zutenean** (3); **eta bertan ehortzi** (4); **eta ehortzi** (11); **eta ehortzi zuten** (3); **eta han ehortzi** (4); **eta hantxe ehortzi** (3); **han ehortzi** (8); **hantxe ehortzi** (4); **harpean ehortzi** (5); **harpean ehortzi zuten** (3); **hilerrian ehortzi** (4); **hilerrian ehortzi zuten** (3); **hilobian ehortzi** (9); **hilobian ehortzi zuten** (8); **hirian ehortzi** (17); **hirian ehortzi zuten** (17); **huntan ehortzi** (8); **huntan ehortzi dugu** (6); **iragan astean ehortzi** (7); **iragan ortziralean ehortzi** (3); **komunean ehortzi** (3); **ondoan ehortzi** (12); **ondoan ehortzi zuten** (10); **ortziralean ehortzi** (3); **ortziralean ehortzi dugu** (3); **samarian ehortzi** (5); **samarian ehortzi zuten** (5); **soroko harpean ehortzi** (3)

astean ehortzia (3); **astean ehortzia izan** (3); **baigorrin ehortzia** (4); **berean ehortzia** (4); **berean ehortzia izan** (4); **ehortzia da** (8); **ehortzia den** (3); **ehortzia izan** (128); **ehortzia izan da** (103); **ehortzia izan nahi** (3); **ehortzia izan zela** (3); **ehortzia izan zen** (9); **ehortzia izanen** (3); **ehortzia izanen da** (3); **ehortziak izan** (5); **ehortziak izan dira** (4); **eta ehortzia** (11); **eta ehortzia izan** (8); **eta han ehortzia** (3); **gure herrian ehortzia** (4); **han berean ehortzia** (3); **han ehortzia** (9); **han ehortzia izan** (5); **hemen ehortzia** (8); **hemen ehortzia izan** (6); **herrian ehortzia** (9); **herrian ehortzia izan** (7); **hil hobian ehortzia** (3); **hilerrian ehortzia** (3); **hobian ehortzia** (4); **hobian ehortzia izan** (3); **hor ehortzia** (4); **huntan ehortzia** (7); **huntan ehortzia izan** (7); **larunbatean ehortzia** (4); **larunbatean ehortzia izan** (4); **non ehortzia** (3); **ortziralean ehortzia** (3); **ortziralean ehortzia izan** (3); **urtetan eta ehortzia** (3)

ehortziko dut (3); **ehortziko dute** (4); **ehortziko naute** (3); **ehortziko nauzu** (3); **ehortziko zaituzte** (3); **hilobian ehortziko** (5); **hilobian ehortziko nauzu** (3)

---

ehortziberri ik **ehortzi 6**.

---

ehortzigabe *(orobat **ehortzi gabe**) izond* ehortzia izan ez dena.

Etsaien hilotz **ehortzigabeak** dira, batzuk gudu-uniforme grisa soinean, eta beste batzuk kaki-jantzian. Mirentxu Larrañaga

Lurrean gorpu **ehortzi gabeak** gorpuen gainean erruz zeutzan arren, hala ere, hegaztiak eta piztiak galdu-gordean aldentzen ziren. Xabier Amuriza

---

ehortzketa ik **ehorzketa**.

---

ehortzle ik **ehorzle**.

---

ehorz ik **ehortzi 6**.

---

ehorzeta ik **ehortzeta**.

---

ehorzi ik **ehortzi**.

---

ehorzketa *(627 agerraldi, 50 liburu eta 446 artikulutan; ETCn 2.633 agerraldi; orobat **ehortzketa** g.er.)* **1** *iz* ehortzea, lur ematea. ik **ehortzeta**.

Heriotzarekin lotuta dauden arlo guztiak arautzeko, hala nola hilkutxak, hilotz garraiatzea, erreketa, **ehorzketa**, hileta enpresak, beilatokiak eta hilerriak. Berria - Harian

Ehorzketa, hileta-elizkizunak, meza, eskelak eta lutu-jantziak antolatzeari ekin genion. Joseba Urteaga

Sararen heriotza eta **ehorzketa**. Elizen arteko biblia

Gauzak legez egitera, **ehorzketa** atzo egin behar genukeen eta ez gaur, hilotza seko belzturik dagoenean. ez zekiela **ehorzketa** nola enkargatu, etxean ez baitzegoen sosik. Aingeru Epaltza

Florentek hilkutxa eta **ehorzketa** ordaintzeko dirua aurreratu behar izan zuen. Karlos Zabala

Zalantza izan nuen jakinaraztea komeni ote zen, **ehorzketa** bezperan burutua izaki, bertan egotea ezinezkoa zitzaidanez. Ramon Saizarbitoria

Ehorzketa batera joatekotan zara edo? Ramuntxo Etxeberri

Mundu bat bazen **ehorzketan** iragan ortziralean. Herria

Ezezagun baten **ehorzketan** ere izana naiz -gehitu du irribarrez-. Monika Etxebarria

Bai, aseguru etxeko paperak, **ehorzketarako** paperak, eta... Jon Muñoz

Ateratzen utziko dinate **ehorzketarako**, hiletarako ez, **ehorzketarako** bakarrik. Anton Garikano

Amak **ehorzketarako** soilik itxi zuen denda. Joseba Urteaga

Ehorzketa ondoko otordua ostatuan izan zen, elkarren segidan jarritako mahaietan. Joseba Urteaga

Etxe atariko petrilean eserita zaindu nituen zaldiaren **ehorzketaren** azken egitekoak. Bernardo Atxaga

Halaxe dio, hotz eta zehatz, haren **ehorzketaren** agiriak. Edorta Jimenez

Liburuaren hasierako eszena, **ehorzketarena**, irakurtzen ahalegintzen zen bitartean. Xabier Aranburu

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horregatik, hilkutxa bat erosi zuen herrian, **ehorzketa** duina eskaintzeko behintzat. Martin Anso

Gogoan daukat lehen **ehorzketa** zibila egin genuelarik, nolako ikara mezako jendailak zerraldoa gurutzerik gabe generamalako hilerrira. Koldo Izagirre

Ez baitu deus aipatzen ahaideez edo **ehorzketa** katolikoaz. Koldo Izagirre

Suzko erritua gehiago, lurpeko **ehorzketa** baino. Joxan Elosegi

Intzirika ez dut inor sumatu sardina honen balizko **ehorzketan**. Hasier Etxeberria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ehorzketa-gauean iritsi ziren esamesa horiek Media Lunara. Juan Garzia

Bazkalondoko paseoan ia egunero igarotzen naiz gure eta gure desiren eta ilusioen zain dagoen **ehorzketa** etxetik. Koro Navarro

Nemesio Arozena lehorreratu zen Taboadaren atzetik, eta **ehorzketa**-etxekoei egin zien aurre matxetea ez baina mailu-zintzelak eskuetan. Koldo Izagirre

Euskal Herriko eta Georgiako **ehorzketa** erituak ere ikertu dituzu. Berria - Kultura

Euskal militanteen **ehorzketa**-omenaldien kasuan, alde gutxi dago Francoren polizia eta guardia zibilen jarreratik Atutxa edo Balzaren polizien jarrerara. Jokin Urain

Irakur **ehorzketa** ordua. Aingeru Epaltza

Udaleko funtzionarioak **ehorzketa**-agiria erakutsi zidan. Aingeru Epaltza

Hola karabineruek uste zixien **ehorzketa** mezatik heldu zela gibelerat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

4 *ipar pl*

Ortziralea, apirilaren 8an, Erroman Joani Paulo II.ren **ehorzketak**. Herria

Biharamun hartan ziren preseski Lorentxuren **ehorzketak**. Janbattitt Dirassar

Biharamunean egin ziren haren **ehorzketak**. Elena Touyarou

Ehorzketak bere sort herrian izan ditu. Ramuntxo Etxeberri

Gogoeta ainitz egiten dut, bainan berehala hil behar banu pentsalari libre baten **ehorzketak** behar nuzke. Marzel Etxehandi

Bere aitatxiren **ehorzketen** egunak irudikatzen ditu argazki sail batek, adibidez. Eiherazainaren **ehorzketetan** luzaz egon zen begiak lurretik altxatzera ezin ausartuz. Berria - Kultura

Aita hiltzen zaiolarik, semeak **ehorzketetan** ohore bereziak eskaintzen ahal dizkio. Aurelia Arkotxa

Zaharturik eta goibel ikusi zuen, andre Engraziaren **ehorzketetan**. Elena Touyarou

Thomas Duperou, Oklahomako abadea Beloken hil zelarik, Jauffretek egin zuen **ehorzketetako** predikua. Xipri Arbelbide

Ehorzketetara jende guti azaldu zen, emazteak gehien bat, eta denek so akusatzaileak bota zizkioten, amaren heriotzaren hobendun balitz bezala. Elena Touyarou

Ehorzketa jendetsuak ukan ditu Jondono Martine elizan. Herria

Merezi zituen **ehorzketa** hunkigarriak ukan ditu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ehorzketa sinboliko moldekoak funtsean; *proëlla* deitzen zen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere ehorzketa (9); **bere ehorzketa egunean** (3); **bere ehorzketa meza** (5); **bi ehorzketa** (7); **bi ehorzketa izan** (3); **da ehorzketa** (6); **dituen ehorzketa** (3); **ditugu hiru ehorzketa** (3); **dugu ehorzketa** (5); **dugu ehorzketa bat** (5); **ehorzketa bat** (10); **ehorzketa eder** (7); **ehorzketa eder eta** (5); **ehorzketa ederrak** (4); **ehorzketa ederrak ukan** (3); **ehorzketa egunean** (29); **ehorzketa horiek** (3); **ehorzketa hunkigarriak** (17); **ehorzketa hunkigarriak izan** (3); **ehorzketa hunkigarriak ukan** (8); **ehorzketa izan** (7); **ehorzketa izan ditugu** (4); **ehorzketa jendetsuak** (3); **ehorzketa meza** (11); **ehorzketa meza iragan** (7); **eta ehorzketa** (10); **haren ehorzketa** (9); **haren ehorzketa egunean** (8); **heriotze bi ehorzketa** (3); **hiru ehorzketa** (6); **izan dugu ehorzketa** (5)

baten ehorzketak (4); **bere ehorzketak** (10); **bere ehorzketak iragan** (4); **dira ehorzketak** (8); **dira haren ehorzketak** (5); **dira hunen ehorzketak** (3); **ehorzketak asteazken** (3); **ehorzketak asteazkenean** (5); **ehorzketak astelehen** (4); **ehorzketak astelehen aratsaldean** (3); **ehorzketak bere** (3); **ehorzketak bere sort** (3); **ehorzketak egin** (18); **ehorzketak egin dira** (17); **ehorzketak eginak** (30); **ehorzketak eginak izan** (30); **ehorzketak eta** (4); **ehorzketak ganden** (3); **ehorzketak gure** (4); **ehorzketak gure elizan** (3); **ehorzketak herriko** (4); **ehorzketak herriko elizan** (4); **ehorzketak iragan** (23); **ehorzketak iragan dira** (21); **ehorzketak izan** (3); **ehorzketak joan** (3); **ehorzketak joanden** (3); **ehorzketak larunbatean** (4); **ehorzketak ortzaizeko** (5); **ehorzketak ortzaizeko elizan** (5); **ehorzketak ukan** (5); **ehorzketak ukan ditu** (4); **ehorzketak ziren** (7); **en ehorzketak** (5); **eta ehorzketak** (8); **eta hunen ehorzketak** (12); **haren ehorzketak** (12); **haren ehorzketak ziren** (3); **hunen ehorzketak** (47); **hunen ehorzketak egin** (12); **hunen ehorzketak eginak** (22); **hunen ehorzketak iragan** (5); **iragan dira ehorzketak** (6); **n ehorzketak** (4); **ren ehorzketak** (5); **zenaren ehorzketak** (8); **zituen ehorzketak** (3); **zituen ehorzketak ukan** (3)

da ehorzketen (3); **ehorzketako egunean** (5); **ehorzketako egunean** (5); **ehorzketako meza** (8); **ehorzketako meza** (8); **ehorzketako mezan** (18); **ehorzketako mezan** (18); **ehorzketen ondotik** (4); **haren ehorzketetan** (5); **zenaren ehorzketetan** (3)

---

ehorzle *iz* ehorzten duen pertsona, lur-emailea.

Ehorzleek traje grisez, alkandora zuriz eta gorbata beltzez jantzita egin zutela lana. Ramon Saizarbitoria

Ehorzleak hilkutxa ireki zuenean zergatik ote zegoen Bera bizirik balego bezala, gaur bertan lur eman baliote bezala? Xabier Etxabe

Ehorzle batek jasotzen ditu egunsentian eta zulo batera botatzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ehorzleek eginak zituzten beren kosmetika lanak. Koro Navarro

Ehorzleak Kaddish-a errezitatu zuen. Koro Navarro

Ehorzleak ongi zekien kanposantuko lur guztia dagoela hezur zati txikiez josita. Ramon Saizarbitoria

---

ehorzleku *(orobat **ehortz leku**) iz* ehortzeko lekua.

Ehorzlekua mugitu gabe egon zen erresuma Dariogana iritsi arte; honek ordea, arrunt tentatu eta, ireki egin zuen **ehorzlekua**, eta diru ordez gorpua eta hitzok aurkitu omen zituen barrenean: [...]. Patziku Perurena

Nire ondoren datorren Babylongo erregeren batek dirubeharrik izan baleza, **ehorzlekua** irekiz, nahi adina har beza. Patziku Perurena

Nikotris erreginak, jenderik gehiena igarotzen zen hiriko atearen gainean bere **ehorzlekua** prestatu zuen, atalburuan hitzok zizelatuz: [...]. Patziku Perurena

Mikel Strogoffek Nikolas gizagaixoaren **ehortz-lekua** aurkitu zuen. Karlos Zabala

---

ehorzte *iz* hila lurpean sartu eta lurrez estaltzea. ik**ehortzi 6**.

Sakramendu bataio **ehorzte** ezkontza. Herria

Ehorzte ederrak ukan ditu. Herria

Zilegi dugun bezain zabaldu ditugu **ehorzte**-elizkizunak. Juan Garzia

Bidarten iragan da astelehen aratsaldean **ehorzte** elizkizuna. Herria

Nevada-Reno-ko Mixel Aurnague familiak eskerrak bihurtzen ditu Dominica Aurnague zenaren **ehorzte** mezarat juntatu diren guzieri. Herria

---

ehorztegi *iz* hortzeko lekua.

Koipegin hordi batek labanorri zabal bat hondoratua zion lepoan, elkarrekin zeutzala, landa-arras, **ehorztegi** abandonatu bateko lauzen gainean. Juan Garzia

---

ehorztetxe *iz* ehorzketa etxea.

Ziurtatu zidatela **ehorztetxean**, gorpuzkiak hezurtegira bota baino lehen, hamar urtez edukitzen dituela Udalak hilobi komunean. Ramon Saizarbitoria

Bilboko **Ehorztetxeak** errausketa-labea eraiki nahi du hiriburuan. Berria - Euskal Herria

Eta gertatu zen Mindeloko **Ehorztetxeko** auto handia Lisboatik heldu berria zela guztiz berriztaturik eta esan liteke hura Napumoceno jaunak estreinatu zuela. Bego Montorio

Errazionamenduko kupoiak esneketariak lortzen dizkigu, gaztaz **ehorztetxe** bateko jabeak hornitzen gaitu. Josu Zabaleta

Ehorztetxeko langileek ezin izan zuten gorpua atera eta suhiltzaileei laguntza eskatu zieten. Berria - Euskal Herria

Entzun duk inoiz **ehorztetxeek** gain-tarifak dituztela zeharkatu beharreko probintzia bakoitzeko? ez? Aingeru Epaltza

Ehorztetxekoak berak kaoba landuzko eta zilarrezko heldulekuak zituen hilkutxa ederra ekarri zuenean, atzeko atean tente gelditu behar izan zuen hildakoa garbitu gabe zegoelako. Bego Montorio

Elizgizona eta predikaria izateak erraztuko zion, akaso, enpresaren munduan sartzea, eta afroamerikarren esku zegoen negozio bakanetariko batean sartu zen: **ehorztetxeen** negozioan. Berria - Kultura

---

ehorztoki *iz* ehorzteko tokia.

Blokean, **ehorztoki** gutxi zeuden aldean, ez dakit zergatik. Iñaki Zabaleta

Baitakuskit hogei mila gizon hortxe heriotzara bidean, ospe-kontu fantasia hutsezko bategatik, oheak bailiran beren hilobiak, osteak hartzeko aski zabal ez den sailtxo batengatik borrokan, zeina ez baitateke lurpe eta **ehorztoki** nahikoa hantxe zerraldo erorientzat? Juan Garzia

---

ehulategi *(orobat **ehulatei**) iz* ehuleak aritzen diren tokia.

Kartoietan zituen koloreak **ehulategietarik** jalgitzean aldatuak ateratzen zirenez, Lurçat-ek, 1939ean, Aubusson atelierretan hogeita hamar bat kolorezko hari zenbakiz bereiztea erabaki zuen. Berria - Kultura

Ehulateiko seme honek ehule ixtorio horiek laket nituela ikusi zuen beharbada gure irakasleak. Piarres Xarriton

Ehulategi bat bazuten aireplano lantegi batean birmoldatua, hor 2 000 deserritu badira hiru geletan zatituak. Michel Oronoz

---

ehulatei ik **ehulategi**.

---

ehule 1 *iz* ehunak ehotzen dituen langilea.

Irule-gremioen, **ehuleen** eta oihal-merkatarien protestak alferrikakoak izan ziren: goruren bat gordetzen zuenak buruarekin ordainduko zuen. Iban Zaldua

Mendebaldeko ehungintza-hiri guztien inguruetan, merkatariek, destajuan lan egingo zuten eta hiriko langileek bezalako eskariak egingo ez zituzten langileen bila, iruleak eta **ehuleak** milaka errekrutatu zituzten. Koro Navarro

Menturaz politikariak har zezakeela eredutzat **ehulea** : irazkia eta bilbea gurutzatzen dituen bezala **ehuleak** ehunean, behar bailuke jakin politikariak bakoitza eta anitza, askatasuna eta zorroztasuna, gurutzatzen gizartean. Piarres Xarriton

Nola dezakeen **ehuleak** piru bakarreko irazkiarekin hari anitzeko bilbea eho? Piarres Xarriton

Ehotzen amaitu ondoren, **ehuleak** mozten duen ehunaren antzeko da nire bizia. Elizen arteko biblia

Bitartean, gizon-emakumeek bazterrean utzi dituzte alkimisten sineskeriak, **ehuleen** ofizioak, belaontziak eta zalgurdiak, mosketeak eta alabardak. Felipe Juaristi

Ehuleen ardatza zirudien lantza zeraman egiptoarrak eskuan. honen lantza-kirtena **ehuleen** ardatza adinakoa zen. Elizen arteko biblia

Betidanik liluratu izan nau **ehule** kontu metaforiko honek, bere aldaera guzietan: ehundu, josi, irun, brodatu, zurtzitu... Patziku Perurena

Ikusmena, marrazkiarekin; entzumena, ipuinaren kontakizunarekin; usaimena eta dastamena, txokolatearekin; eta ukimena, **ehulearen** lanarekin. Berria - Kultura

Nire buruko zazpi mototsak irazkiarekin txirikordatzen badituzu eta **ehulearen** ziriekin lotzen, indarra galduko dut eta beste edozein bezalakoa izango naiz. Jose Antonio Mujika

Alfonbra pertsiar eder baten aurrean, urliak ez du ikusten alfonbra egin zuen **ehulearen** nekea beste deus, berendiak, aldiz, simetrien ederra edo hari baten lotura miresgarria, **ehulearen** eskua eta ehunduraren ederra uztartzerik ez balego bezala. Anjel Lertxundi

2 (izenondo gisa)

Ia bi urtean ibili zen emakume **ehule** batekin, non eta Delawaren, beltzentzat ezagutu zuen lekurik gaiztoenean. Anton Garikano

Haien aholkua jarraitu eta gordeta bizi izan zenean emakume **ehulearekin** Wilmingtonen. Anton Garikano

3 (hitz elkartuetan)

Gure etxean, preseski, lehenago ehuleak baldin baziren -**ehule** etxe batean sortua bainiz-, **ehule** lan hori finitu zelarik, hain xuxen Hazparnen egin zuten orain "la reconversion" deitzen dena, eta zapetagintzarat itzuli ziren. Menane Oxandabaratz

---

ehun[1] *iz* **1** biologian, morfologia eta eginkizun bera duten zelulen multzoa.

Aurpegiko **ehun** batzuk hondatu zizkion hozminak. Irene Aldasoro

Gorputzeko **ehun** guztietan dago kolagenoa, baina besteak ez bezalakoa da hezurretakoa, mineralizatu egiten baita. Irene Aldasoro

Gorputzaren **ehun** bat ez ezik garraio-sistema bat ere badenez odola, [...]. Irene Aldasoro

Erdiko geruza gehituta lortzen da hurrengo konplexutasun maila, eta horretatik garatu dira, eboluzioan zehar, hainbat organo eta **ehun** ; besteak beste, eskeletoa. Irene Aldasoro

Alzheimerrak kalteturiko **ehunak** . Berria - Gaiak

Zeren nerbio-zuntza, gorputzeko gainerako **ehun** gehienak bezala, ez baita eroale ona. Irene Aldasoro

Bizkar-muinean behera zabaltzen da **ehun** hori, eta handik, berriz, gorputz osora, nerbio finezko sare bat eratuz. Irene Aldasoro

Gorputzaren diseinuan, ordea, elkarri loturik egon behar dute pieza guztiak odol-hodi, nerbio eta beste **ehun** batzuen bidez. Irene Aldasoro

Gorputzaren diseinuan, ordea, elkarri loturik egon behar dute pieza guztiak odol-hodi, nerbio eta beste **ehun** batzuen bidez. Irene Aldasoro

Inguruko **ehunen** dentsitate bertsua du bihotz naturalak. Irene Aldasoro

Zailagoa da organo-transplanterako **ehunen** bateragarritasuna lortzea. Irene Aldasoro

Ehunen patologiari buruzko lana. Fernando Rey

Justxenkoren odolean eta **ehunetan** dioxina gai kimikorik kutsagarrienetako bat ohi den baino 1.000 bider gehiagoko kontzentrazioan aurkitu dute. Berria - Mundua

Mintz basilarra deritzo **ehunezko** xafla horri. Irene Aldasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gorputzeko **ehun** eta osagai egiturazko ia guztiak hainbat eta hainbat helbururen zerbitzura daude. Irene Aldasoro

Hildako ehuna xehatu eta erretiratu egiten dute, **ehun** berria hazi eta galera berdindu dadin. Irene Aldasoro

Zaila da organo artifizialak garatzea, gorputzak arbuiatu egiten baititu plastikoa eta metala, **ehun** arrotzak arbuiatzen dituen bezalaxe. Irene Aldasoro

Ehun garrantzitsuak dira eskeletoa eta hari atxikitako muskuluak. elkarren kontra zapaldurik daude zelula hil horiek, **ehun** sendo bat eratzeko. Irene Aldasoro

Larruazalaren azpian dauden **ehun** bigunek eragozpen handirik gabe eroaten dute elektrizitatea. Irene Aldasoro

Arteria handien paretek ere **ehun** elastiko asko dute. Irene Aldasoro

Barruko organo eta **ehun** delikatuak ingurune gaiztotik babesteaz gainera, ingurunea bera kontrolatzen du. Irene Aldasoro

Ehun transplantatu bat. Irene Aldasoro

Abortatutako umekien erretinetako **ehunak** jarri zizkioten orain bi urte ia itsu zen emakume bati, eta andre horrek, apurka-apurka, ikusmena berreskuratu du. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aita, Roland Dee, **ehun** -saltzailea zen, baina ez edozein **ehun** -saltzaile, Henry VIII.aren arropa egiteko ehunak berak hornitzen baitzituen erregearen Hampton Courteko jauregira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jakina baita (**ehun** -hazkuntzan egindako esperimentuetatik) beren forma eta egitura bereziak garatuko dituztela hezurrek. Irene Aldasoro

Ehun -geruza bat da urdail-mukosa, fluidozko kapa labain batek estalia. Irene Aldasoro

Ehun -transplantea, arazo gehienentzat irtenbide onena izan daitekeena, aurrera egin ezinik dago, oraindik ere arbuioaren prozesua behar bezala ulertu faltaz. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Usteltzearen ondorioz gasa sortzen da, gas horrek zelula **ehunak** eta barrunbe guztiak zabaltzen ditu, eta horrexek ematen dio gorpuari buiatu itxura hain ikaragarri hori. Koro Navarro

Neuronek, garun- **ehunaren** parterik handiena osatzen dutenez, zerikusiren bat izan behar dutela oroimenaren gordailuarekin. Irene Aldasoro

Nerbio- **ehunez** egina da garuna. Irene Aldasoro

Nerbio- **ehunezko** hainbat pistaren bidez lotzen zaio bizkar-muina garunari. Irene Aldasoro

Substantzia horiek [...] urte askoan irauten dute atmosferan, eta, era horretan, animalien gantz **ehunetan** eta Artikoko izotz blokeetan ere pila daitezke. Berria - Gaiak

Osteoblastoek hezur- **ehun** berria sortzen dute. Irene Aldasoro

Zuntz- **ehun** gogor batez egindako kordoi bat. Irene Aldasoro

Sentimenezko errezeptoreek eta nerbio bukaerek bulkada elektriko bihurtzen dituzte laztanak, eta, sentimen **ehunen** bitartez, larruazal guztitik [...] erreflexu orgasmikoaren guneraino eramaten dituzte bulkadak. Luis Elberdin

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Iragan mendeko Piamontean **ehun** -oihalen merkataritza juduen eskuetan zegoen maiz, eta hortik azpihizkera espezializatu bat sortu zen. Juan Garzia

6 edozein hari edo zuntz mota ehoz egiten den ekaia. ik **oihal**.

Bidal iezadazu, urrea, zilarra, brontzea eta burdina lantzen eta **ehuna** gorriz, gorriminez eta morez tindatzen iaioa den gizonen bat. Elizen arteko biblia

Ikara ematen zuen etxeko oihal, zapi eta **ehunetara** hurbiltzeak: hauts bihurtzen ziren ukitze hutsarekin. Jose Morales

Aski zuen fardelen tamainari erreparatzea bakoitzaren barruan zeuden oihalek edo bestelako **ehunek** zenbateko pisua zuten jakiteko. Jose Morales

Momia kotoiz beteriko **ehunekin** bilduta zegoen eta **ehun** horiek soka batekin lotuta. Berria - Gaiak

Biltegietan, aletegietan eta idortegietan hark beste oihal, **ehun** , ardi-larru ondu zein ondugabe. Jose Morales

Sedazko jantzien ordez **ehunezko** jantziak jantzi dituztenak. Iñaki Iñurrieta

7 (izenondo eta izenlagunekin)

Kalitaterik oneneko **ehun** holandarra -alkandorak egiteko-. Jose Morales

Hain bortizki jiratu zen besaulkian, ezen zarrastatu egin baitzen bigungarria biltzen zuen **ehun** artilezkoa; harrituxe begiratu zion Manilovek berak. Jose Morales

Txanponez txanpon dirua bildu eta komodako kaxoietan ezkutaturiko **ehun** latzezko zakutxoetan sartzen duten andre lurjabe txiki horietakoa. Jose Morales

Kotoizko **ehun** koadrodunez, eskuz egindako errezelez. Oskar Arana

Ez dute erabiltzen larruzko jantzirik, ez lihozko **ehunik**, ilezko tunika kaputxadunak bakarrik baizik. Askoren artean

Dekoraziorako aukeratu zuen kretonazko **ehuna**, berriz, ez zuen hainbeste aukeratu diseinu garaikideari men egitearren. Mirentxu Larrañaga

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ingalaterran egona baitzen oihal-**ehunak** erosten. Juan Garzia

Koloretako tafeta-**ehuna** bezala aurkituko ditugu honen ipurmasailak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Molekula txiki jakin batzuekin erreakzionatzeko gai da, zenbait oliorekin kasurako, eta haien artean zubiak sortzeko, sare-**ehun** trinko eta beraz solido batean eraldatuz: halaxe "lehortzen" da, adibidez, liho-olioa eguratsean. Juan Garzia

9 irud/hed

Bozgorailuaren distortsioak haizearen **ehuna** tarratatu zuen, gure belarriak negarrez ipini. Karlos Linazasoro

Ekoizpenaren hondamena, hiperinflazioaren esperientzia arriskutsua eta gizarte-**ehunen** desegitea dira Bretton Woodseko erakundeen jarrera argituaren pean eramandako "eraldaketa handi" horren fruitu garratzak. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edo ehunak (3); **ehun hori** (8); **ehun horiek** (4); **ehun laginak** (4); **ehun zati** (6); **ehun zati bat** (4); **ehun zatiak** (3); **ehunak eta** (7); **eta ehunak** (5); **gorputzeko ehun** (4); **gorputzeko ehunak** (3); **kretonazko ehun** (3); **obulutegiko ehunak** (3)

---

ehun[2] **1** *zenbtz* hamar bider hamar, 100. (izen baten ezkerrean)

Oso luzea al da, Dena bezala, hamar hitzetan konta daiteke, edo **ehun** hitzetan, edo milatan, edo gerta liteke kontatzen hasi eta sekula ez bukatzea. Jon Alonso

Berebiziko ikuskizuna eman zuten, ispiluetan dirdizka mila islatan ugaltzen zen **ehun** lanpararen argipean. Karlos Zabala

Flash batean, doi-doi ikusi zituen kutxak ozeanoaren hondoan boteak, **ehun** metro uraren azpian. Jon Muñoz

Ehun begi ziren, **ehun** belarri, beti erne, beti adi, beren xedearen alde. Karlos Zabala

Ontzat eman zuen etxeko jaunaren patxada filosofikoa, hari esker **ehun** urte biziko zela esanez. Nicolas Oresmek, **Ehun** Urteko gerraren garaian, *zenbatzaile* eta *izendatzaile* hitzak sortu zituen. Jose Morales

Ia **ehun** urte igaro dira Jules Verne hil zenez geroztik. Karlos Zabala

Handik **ehun** urtera, Maraghako hirian. Jon Muñoz

Bizi denak ikusiko du hemendik **ehun** urteren buruan zertan gelditzen den. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Musikaren azken **ehun** urteotako historian. Harkaitz Cano

Bi neskagazte eman nizkion artzapezari, **ehun** errubloren truke bakoitza, eta artzapezak eskerrak eman zizkidan, oso langile finak atera zitzaizkion eta. Jose Morales

Ehun liberatik gorako zorren kasuetan. Iñaki Iñurrieta

Orduan **ehun** dolar eman dizu eta zita bat prestatu du zuretzat, agente batekin biltzeko. Fernando Rey

Hemezortzi urte bete baino lehen, 1,90eko luzerarekin eta **ehun** kilo inguruko pisuarekin, zerrategiko "aizkorarik" hoberenaren ospea zuena. Bernardo Atxaga

Botako zituen **ehun** gramo gurin, beste hainbeste azukre eta bi arrautza sopera handi batean. Pako Aristi

Aulkian hondoratzeko zorian sentitu nintzen kolpetik, **ehun** kilo erantsi balizkidate bezala. Bernardo Atxaga

Esprinterrak, epe laburreko energia-erreserba erabiliz, orduko 23 miliako abiaduran egin ditzake **ehun** yarda. Irene Aldasoro

Amerika hantxe bertan zegoen, **ehun** miliatara baino hurbilago. Jon Muñoz

Atleta sobietiko batek **ehun** metroak hamar segundotan egin zituen. Joseba Sarrionandia

Segundoko **ehun** metro inguruko abiaduran. Irene Aldasoro

"Leku zibilizatuetan bakarrik edan behar da, taxiak eskura egoten direlako", errepikatzen zuen **ehun** metrotik **ehun** metrora gure irakasleak. Bernardo Atxaga

2 (ehun osagai duten zenbakiekin)

Bost **ehun** metrotan badago gune bat, "Hiruzubieta" deitua, hiru zubi dituelakotz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Fontenayko batailan **ehun** mila frantses hil izanak pentsarazi zien artean geratzen ziren nobleei ezen, erregeek banaketaz zituzten beren auzi partikularrak zirela medio, azkenean berak desagertu egingo zirela. Iñaki Iñurrieta

Ehun milioi soldadu beharko lirateke etenik gabeko harresi bat jaso ahal izateko. Josu Zabaleta

XII. liburuan dio erromatarrek **ehun** eta hogei itsasontzi enplegatzen zituztela han. Iñaki Iñurrieta

Ehun eta hogei kolpeko zigorrak heriotza omen dakar. Karlos Zabala

Eman **ehun** mila errublo eta berehala aberastuko naiz. Jose Morales

Ehun eta berrogeita hamazazpi dolar eskudirutan, hiru barra mastekatzeko goma, hogeita bost zentimoko lau txanpon. Oskar Arana

Bigarren eskuko Plymouth furgoneta batera igo ziren - **ehun** eta hogeita bederatzi mila kilometro zeuzkan eginak-, eta Berkeley aldera abiatu ziren, Kaliforniara. Oskar Arana

Kobrezko **ehun** eta hogei ontza balio zituen. Iñaki Iñurrieta

Estrabonek jakin zuen Egipton **ehun** eta hogei itsasontzi enplegatzen zituztela bertan; merkataritza hark diru hutsez irauten zuen. Iñaki Iñurrieta

Ehun eta berrogeita hamar puntu galduta. Iñaki Mendiguren

Muskulu handiagoetan, berriz, **ehun** edo mila muskulu-zuntz inguru biltzen dira unitate eragile bakoitzean. Irene Aldasoro

Ehun eta hogei baino gehiago ziren guztira. Jose Morales

Etxalde honek **ehun** eta berrogeita hamar mila balio du, ez berrogei mila. Jose Morales

Etxetik irten, eta **ehun** eta bosgarren urratsean ohartu zen oinak mugitu egiten zitzaizkiola zapaten barnean. Karlos Linazasoro

Pliniok dio handik ekartzen ziren salerosgaiak **ehun** aldiz garestiago saltzen zirela Erroman. Iñaki Iñurrieta

Zeren akabatu baitzen ene Indietako aldia, oren gaitz bati eta bertze **ehuni** itzuri ondoren. Joan Mari Irigoien

3 (deklinabide atzizkiekin)

Hegazkin bat hamar edo hogeiren kontra, eta Dunkerkez geroztik, tanke bat **ehunen** kontra. Josu Zabaleta

Laurogei **ehuni** aterako da dirua Nagoreren alde, eta hirurogei **ehuni** ere kanta dezake artekari batek baino gehiagok. Berria - Kirola

Atzo burtsan ere mila **ehuni** kantatu zuten artekariek baietz Erreserba Federalak interes tasak laster igo. Berria - Ekonomia

Eta Israelgo leinu guztietan **ehundik** hamar, milatik ehun, hamar milatik mila lagun bereiziko ditugu. Elizen arteko biblia

Ironia gaiztoa, **ehundik** gora zubi egon hirian, baterako zein besterako irekiak, eta bide bakarrekoa hartzera behartu. Felipe Juaristi

Ehundik gora metroko tunel hura zen harrigarriena. Jon Muñoz

Ez zuen berrehun orritik gorako libururik irakurtzen, ezta **ehundik** beherakorik ere. Javi Cillero

Ehunetik hirurogeik gutxienez badu nafarreria munduan. Patziku Perurena

Ume bat, hain zuzen, berekin dakarrena, kasuen **ehunetik** laurogeita hamabost baino gehiagotan, bizitzeko, mundua ibiltzeko eta are pentsatzeko behar duen guztia. Juan

Garzia

Ez baduzu onartzen **ehunetik** ehun eurek esaten dutena, deskalifikatzen hasten dira. Berria - Euskal Herria

Esperientziak iraun zuen lau urteetan kontinente osoko **ehunetik** gora komunikatzaile eta hezitzaile sortu ziren tailer horietan. Txema Ramirez de la Piscina

Ordura arte idatzitako sarrerak kontatzeko lanik ez nuen hartu artean, baina **ehunetik** gertu izan behar zuten jada. Oskar Arana

Aitortzen zuen, solasaldi pribatu batean, bere kleroaren **ehunetatik** hamarrak, gorenera, arazorik ez zuela zelibatuarekin. Piarres Aintziart

Ehunetarik gelditu dira hamar. Herria

Frantsesa ikasten dute, baina **ehunetarik** 80 ek lekuko mintzaira bat erabiltzen dute beren artean, hori da kreolera. Herria

4 ***ehunarendako*** *izlag ipar* euneko.

Urte bat barne, bizia kariotu omen da **ehunarendako** biez, hala diote hor gaindi. Herria

Herriko egon etxen sarien alokairua goratua izanen da **ehunarendako** 3,57-ez. Herria

Otsailean bizia ozka batez kariotu da, urte bat barne **ehunarendako** bi eta erdiz nunbait han, Herria

5

Hiru oposizioek: anitzak (bost hautetsi), abertzaleak (bi hautetsi) eta **ehunez ehun** ezkerrekoak buxet horren kontra bozkatu dute, koherentzia eskasia salatuz. Herria

6 ***ehun bat*** ehun gutxi gorabehera. (ikus beheko konbinatorian ehun bat multzoko agerraldi maizkoenak)

7 ***ehunen bat*** ehun gutxi gorabehera. (ikus beheko konbinatorian ehunen bat multzoko agerraldi maizkoenak)

8 ***ehun milaren*** *iz* kopuru bat banatzen den ehun mila zati berdinetako bakoitza. ik **ehunen**.

Ikusten al dugu existitzen diren gauzen **ehun milarena** ere? Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

agintaldiko ehun eta (13); **artean ehun** (8); **aurten ehun urte** (9); **azken ehun** (18); **baina ehun** (16); **baino ehun** (29); **baino ehun aldiz** (8); **baino ehun urte** (6); **bat eta ehun** (10); **batean ehun** (10); **batek ehun** (18); **bederatzi ehun** (8); **bere ehun** (10); **bere lau ehun** (11); **beren lau ehun** (10); **beste ehun** (56); **beste ehun bat** (8); **bortz ehun** (9); **bospasei ehun** (6); **bost ehun** (87); **bost ehun bat** (30); **bost ehun mila** (13); **bost ehun urte** (6); **da ehun** (27); **dela ehun** (11); **dela ehun urte** (7); **dira ehun** (20); **diren ehun** (16); **ditu ehun** (6); **du ehun** (11); **duela ehun** (51); **duela ehun bat** (10); **duela ehun urte** (31); **dute ehun** (7); **duten ehun** (12); **edo ehun** (31)

ehun aldiz (61); **ehun ardi** (7); **ehun auto** (6); **ehun baino** (18); **ehun baino gehiago** (13); **ehun bat** (520); **ehun bat buhami** (7); **ehun bat familia** (6); **ehun bat gazte** (6); **ehun bat haur** (6); **ehun bat jende** (9); **ehun bat lagun** (56); **ehun bat lagunek** (10); **ehun bat lagunen** (9); **ehun bat metro** (25); **ehun bat metrora** (21); **ehun bat pertsona** (7); **ehun bat urte** (18); **ehun bider** (10); **ehun bozetarik** (10); **ehun dolar** (14); **ehun dolarreko** (9); **ehun edo** (17); **ehun edo mila** (7); **ehun egun** (21); **ehun errublo** (9)

ehun eta (546); **ehun eta berrogei** (17); **ehun eta berrogeita** (120); **ehun eta berrogoi** (6); **ehun eta berrogoita** (9); **ehun eta bost** (7); **ehun eta gehiago** (8); **ehun eta hamabi** (6); **ehun eta hamar** (21); **ehun eta hirurogei** (11); **ehun eta hirurogeita** (40); **ehun eta hogei** (80); **ehun eta hogeita** (63); **ehun eta hogoi** (12); **ehun eta laurogei** (14); **ehun eta laurogeita** (13)

ehun euro (13); **ehun film** (8); **ehun gazte** (6); **ehun gizon** (7); **ehun gramo** (7); **ehun gudu** (6); **ehun halako** (13); **ehun ikasteko** (18); **ehun kide** (7); **ehun kilo** (21); **ehun kiloko** (7); **ehun kilometro** (11); **ehun kilometrora** (10); **ehun lagun** (57); **ehun lagun inguru** (17); **ehun lagunek** (12); **ehun langile** (9); **ehun metro** (67); **ehun metroak** (10); **ehun metroko** (11); **ehun metrora** (11); **ehun metrotan** (7); **ehun metrotik** (6); **ehun mila** (221); **ehun mila aldiz** (8); **ehun mila euro** (11); **ehun mila euroren** (6); **ehun mila jende** (14); **ehun mila lagun** (7); **ehun milaka** (18); **ehun milako** (6); **ehun milaz** (9); **ehun milaz goiti** (9); **ehun milioi** (14); **ehun miliun** (10); **ehun orrialde** (7); **ehun partida** (6); **ehun pertsona** (25); **ehun pertsona baino** (6); **ehun pertsona inguru** (13); **ehun ta** (8); **ehun urte** (309); **ehun urte baino** (20); **ehun urte bete** (14); **ehun urte beteko** (11); **ehun urte betetzen** (14); **ehun urte geroago** (9); **ehun urte horietan** (6); **ehun urte jaio** (6); **ehun urte lehenago** (15); **ehun urteak** (38); **ehun urteak aurten** (6); **ehun urteak ospatzen** (10); **ehun urtean** (9); **ehun urteetan** (7); **ehun urteko** (29); **ehun urteotan** (6); **ehun urtera** (22); **ehun urteren** (16); **ehun urteren buruan** (12); **ehun urtetan** (7); **ehun urtetik** (12); **ehun urtetik gora** (6); **ehun urtez** (13); **ehun zati** (6)

ehuneko ehun (7); **ere ehun** (7); **eta beste ehun** (17); **eta bost ehun** (7); **eta ehun** (185); **eta ehun bat** (20); **eta ehun eta** (21); **eta ehun mila** (11); **eta ehun urte** (7); **eta hiru ehun** (11); **euskal presoek ehun** (10); **ez ehun** (9); **hamar edo ehun** (7); **handik ehun** (12); **hemendik ehun** (8); **hiru ehun** (101); **hiru ehun bat** (36); **hiru ehun mila** (21); **ia ehun** (32); **ia ehun urte** (11); **jaio zela ehun** (7); **kasik ehun** (7); **lau ehun** (143); **lau ehun bat** (23); **lau ehun mila** (12); **lau ehun urte** (45); **lau ehun urteak** (30); **lehen ehun** (6); **lodzeko ehun eta** (7); **mila ehun** (6); **mila ehun eta** (6); **mila eta ehun** (13); **orain dela ehun** (10); **orain ehun** (17); **orain ehun urte** (11); **orotara ehun** (6); **presoei ehun** (6); **presoek ehun** (21); **presoek ehun ikasteko** (11); **sei ehun** (40); **sei ehun bat** (11); **sei ehun mila** (8); **seleukotarren agintaldiko ehun** (13); **urtean ehun** (11); **zazpi ehun** (37); **zazpi ehun bat** (8); **zazpi ehun mila** (7); **zela ehun** (10); **zela ehun urte** (7); **zen ehun** (15); **zen ehun eta** (6); **zenbait ehun** (8); **ziburuk lau ehun** (23); **zilarrezko ehun** (6); **ziren ehun** (15); **zituen ehun** (10); **zonbait ehun** (17); **zortzi ehun** (31); **zuen ehun** (14); **zuten ehun** (10)

ehundik gora (99); **ehundik gora lagun** (9); **eta ehundik** (8); **eta ehundik gora** (8)

ehunen bat (57); **ehunen bat metrora** (12); **ehunetik gora** (8); **ehunez goiti** (25); **eta ehunen** (7); **eta ehunez** (7); **lau ehunez** (6); **lau ehunez goiti** (6)

---

ehunda *(orobat **ehunta**) zenbtz* ehun eta.

Eta kanoiak izan daitezela **ehunda** bat, ez ehun, eta para ezazu ehundabatgarrena zure jauregiaren aitzinean. Patziku Perurena

Oberskik, zorionez, behin hitz egin zuen eta bere barruko korapiloa **ehunda** hogei orrialdetan gelditu zen. Berria - Kultura

Johan Lópiz Urrozkoa **ehunda** hirutan hogei soldadu eta hamar zaldunez hornitua. Patziku Perurena

---

ehundabatgarren *ord* zerrenda batean aurretik ehun dituena (101.).

Eta, **ehundabatgarrenaren** kontua jakin zuenean, haserretu egin zen. Joan Mari Irigoien

Baina buruan nituen, halaber, bai **ehundabatgarren** kanoiaren iduria, aitak Amaiurri beha paratu nahi zuena baina guk Madrili beha paratu behar genuena eta mendekurako deia egiten zidana. Joan Mari Irigoien

Eta kanoiak izan daitezela ehunda bat, ez ehun, eta para ezazu **ehundabatgarrena** zure jauregiaren aitzinean, Amaiurri beha! Patziku Perurena

Ehundabatgarrena da leialtasun horren froga eta **ehundabatgarrena** da gure ohorea, eta hargatik ipini behar dugu **ehundabatgarrena** gure iragan beltzari beha! Joan Mari Irigoien

-Problema -erran zidan, ezin lehorrago-: zer inklinazione beharko luke **ehundabatgarrenak**, jauregiko arrano inperialaren hegalgabetzeko...? Joan Mari Irigoien

Lehenengo kanoitik hasi beharrean, **ehundabatgarrenetik** hasiko gara... Joan Mari Irigoien

Marrazki hark bertze marrazki haiek oroitarazi zizkidan, noiz eta aitarekin batean **ehundabatgarrenarekin** tiroka aritzen baitzen, orain honat eta orain harat. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ehundabatgarrena gure (3)

---

ehundaka *(**109** agerraldi, **48** liburu eta **11** artikulutan; ETCn **569** agerraldi)* **1** *adlag* ehunka. ik **ehunka**.

Bestean, berriz, akatsa atzeman zuan, baina ez guztian: loteak **ehundaka** zituan, eta hamarretik seik inguru ageri zitean babarrunen eragozpena. Juan Garzia

Erabilitako pospolo-kaxak gordetzen omen zituen sotoan, **ehundaka**, debekatua baitzien bedelei botatzea. Juan Garzia

Ardangelan, berriz, hantxe zeutzan botilak, **ehundaka**, ardo preziatuak oro ozpin. Juan Garzia

Baina **ehundaka** ziren nire bizitzan zehar bete izandako gurutzegramak. Joxemari Iturralde

Beste behin ere, eta **ehundaka** dira kasuak, tortura salaketak epaitegiarekin egin du topo; horma gor eta itsu baten aurrean jarritako salaketa izan da beste behin ere Ainararen hau. Berria - Euskal Herria

Ez lau batera, baina banaka-banaka, horrelako kasuak urtero **ehundaka** gertatzen dira. Gotzon Garate

Ehundaka zekizkien buruz, bulegoan **ehundaka** ilustratu behar izan baitzituen aspaldi, eskuz, ordenagailuaren laguntzarik gabe, lanak oraindik eskulan kutsua zuenean. Karlos Linazasoro

Hartaraz gero, neure studioetan eta neure prestakuntzan aitzina egiten nuela, **ehundaka** ikasi behar izan ditut, milaka ere bai. Joan Mari Irigoien

-Baina **ehundaka** dabiltza hor! Iñaki Mendiguren

Sekulako sarraskia egin bide zuten: **ehundaka**, milaka otsoak akabatu zituzten, gezi, lantza edo ezpataz. Iban Zaldua

Vladimirrek miseriazko soldatak ordaintzen zizkien kontratatutako **ehundaka** langileei. Iban Zaldua

Inguruan, **ehundaka** monitore zifra aldakorrez jantziak. Hasier Etxeberria

Une ilun eta larrietan ene ogi, ene laztan, ene arnas, eta babes, izan ditudan **ehundaka** ta **ehundaka** lagun eta musikari guztiei. Herria

2 (izen mugagabe baten ezkerrean)

Ehundaka tonelada zilar ipiniko dut nik funtzionarioen esku, errege-gordailura eraman dezaten. Elizen arteko biblia

Ez nago bakarrik, **ehundaka** begik barrandatzen naute. Itsas txakurrek **ehundaka** milia egiten dituzte inon gelditu gabe. Koldo Izagirre

Milaka bazkari ematen dira egunero, **ehundaka** etxebizitza alokarazten ditu, **ehundaka** langile daude inguruan eraikinak konpontzen edo egiten, milaka lagunek garraio publikoak erabiltzen dituzte, milaka bisitari etortzen dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ehundaka gizon dira emakume bat baino gehiago maite dutenak. Koro Navarro

Hauxe izan da ene sumendia, laba honen indarrak **ehundaka** sabel, ezpain, tunel, sarobe ernaldu ditu, ene gogoz kontrara, diru apur batzuen truk. Karlos Linazasoro

Harryk bazuen oraindik zer galdetu, **ehundaka** galdera. Iñaki Mendiguren

Hizkeramodu hori ia desagertu da dagoeneko; pare bat belaunaldi aurrerago, artean **ehundaka** hitz eta esapidez hornitua zen. Juan Garzia

Oraindik ere **ehundaka** sustrairen bidez hari loturiko herrialdeetan. Iñaki Mendiguren

Batzuk dirdirka izotz-burduntzi txikiekin eta beste batzuk dizdizka **ehundaka** kandelarekin. Iñaki Mendiguren

Ohikoa izan zen **ehundaka** edota agian milaka urtetan. Iñaki Mendiguren

· Leku hartako paretetan zeuden Castroren iraultzari eskainitako **ehundaka** argazki haiek. Jon Muñoz

Zenbait **ehundaka** disko zituen ondoan, bi montiotan banatuak. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ehundaka aldiz (3); **ehundaka pertsona** (3); **ehundaka urte** (3); **eta ehundaka** (6)

---

ehundegi **1** *iz* ehunak ehotzeko tresna; ehulearen lantegia, ehuntzen den lantegia.

Bakarrik bizi naiz eta **ehundegi** batean egiten dut lan. Lopez de Arana

Eskola amaitzean, neskak **ehundegietan** hasten ziren lanean eta gero haurtzaindegi batek hartzen zituen haien haurrak goizeko seietatik aurrera. Joseba Urteaga

Etxen egoten zen, hari gehiago ez pentsatzera lehiatuz, eta **ehundegian** orenak eta orenak ari izanik, sorbaldak eta besoak minberaturik oheratzen zen. Elena Touyarou

Hark bakarrik bazekien ehunten, baina han ez zen **ehundegirik**, eta bestalde ez zuen sosik zurgin bati bat egin ziezaion manatzeko. Elena Touyarou

Nahiz eta baserrietako, burdinoletako eta **ehundegietako** lanen deskribapen luze eta zehatzek kontaketaren erritmoa moteltzen duten, atal batzuetan bizitasun handikoak dira Maisu Juan bizargilearen eta Peru baserritarraren arteko solasak. Berria - Kultura

Pinot **ehundegietako** beharginak. Monika Etxebarria

Jauregian paretak zeta frantses tindu finekoz estaliak zeuden: zeru-koloreak, berde argiak, arrosak, azpildura urrekaraz sendotuak, eta guztiak Pariseko **ehundegietatik** ekarriak. Xabier Olarra

Asia hegoaldeko herrietako **ehundegietan**, esaterako, adingabe askok gehienak neskak egunean 14-18 orduz egiten dute lan. Berria - Gaiak

Irule-ofizioaren galtze ekidinezinaren ondoren, erresumako **ehundegiek** banan-banan itxi zituzten ateak. Iban Zaldua

Ehunak burdinaren ondorengo dira, **ehundegiak** burdinaz egiten baitira. Xabier Amuriza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Txirikorda ederdun jainkosaren atarian gelditu ziren; Zirzeren ahots ederra entzun zuten kantuan, **ehundegi** handian zihardu en bitartean. Juan Kruz Igerabide

Fabrikako sala luze eta estuak iruteko makinaz, **ehundegi** mekanikoz eta lurrun-motorrez bete zituen, egunean bost mila oihal-pieza ekoizteko helburuarekin. Iban Zaldua

Barruan, harrizko ardontziak daude, eta erlauntzak eta harrizko **ehundegiak**; haietan ehuntzen dituzte ninfek beren jantziak itsasoko purpuraz Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetan)

Pisu batean **ehundegi** sail bat zegoen, eta haietan neska batzuek, kotoi puskak ilean, trebetasun handiz korapilatzen zituzten hariak. Koro Navarro

Sukaldean bakarrik aditzen zen pedalek eragin **ehundegi**-zuren kriskitina. Elena Touyarou

4 irud/hed

Nahigabean datoz nere sentimenduen **ehundegira** aditz sorginok. eta bizitza da, azken finean, gertaki haien guztien eta arrazoin haien guztien bilbatzea eta irazkitzea, denboraren **ehundegietan**. Patziku Perurena

---

ehundoko ik **egundo 6**.

---

ehundu, ehun(du), ehuntzen **1** du *ad* irazkiko hari edo kidekoen artetik bilbekoak pasaraziz ehuna moldatu.

Emakumeek ahuntz-hilea **ehundu** zuten. Elizen arteko biblia

Artile asko pilatu zitzaidan, ez neukan non saldu, eta oihalak **ehuntzen** hasi nintzen, oihal lodi eta arruntak. Jose Morales

Alabaina, egunez **ehuntzen** zuena, gauez desegiten zian. Juan Kruz Igerabide

Penelope berria, hari bat eta beste bat, urruti dagoenaren mesedetan eta itxaropenetan trikota **ehuntzen**. Hasier Etxeberria

Sendotxoenak erdiko nerbiotarako ipini, eta haien artean bigunago eta zumelagoak tartetik, batean goitik eta bestean azpitik pasatuz, **ehundu** eta trentzatuz, aparteko itxiturak gauzatu ohi ziren merke asko. Pello Zabala

Christine Bessonart Senpereko auzapezak egin zien harrera, munduko emazteek **ehundu** oihalaren gerizan. Berria - Harian

Duhaldek sare politikoa **ehundu** baitu, batez ere Bueno Aires Handian. Berria - Euskal Herria

Ordoki guztia lotu zait, eta urrezko arrastozko sare distiratsu bat ari zait inguruan **ehuntzen**. Josu Zabaleta

Nihaur arduratuko naiz **ehuntzeko** haria eskura dezazun. Elena Touyarou

Barruan, harrizko ardontziak daude, eta erlauntzak eta harrizko ehundegiak; haietan **ehuntzen** dituzte ninfek beren jantziak itsasoko purpuraz. Juan Kruz Igerabide

Deskribatzen du nola edukitzen zuten herritarrek kalamua urtebetez uretan harritzarrez finkaturik, eta gero nola lehortu eta **ehuntzen** zuten, zamau eta zapiak egiteko, edo gaztainak biltzeko zakuak. Xabier Olarra

Egun haietan Ada ohartzen hasita zegoen triangelua osatzeko baldintza zenbaiten amarauna **ehuntzen** ari zela gure inguruan. Anjel Lertxundi

Venezia hasi zen, XI. mendean, merkataritza-sare bat aurrenekoz **ehuntzen**. Koro Navarro

Gamelu zurdez **ehunduriko** jaka eta zamarra. Karlos Zabala

Ez duzue artilea eta lihoa nahastuz **ehunduriko** arroparik jantziko. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Hari horiek mezu konkretuen inguruan **ehundu** dituzte, baloreak oinarri hartuta. Berria - Harian

Eta, bestetik, errealitate hurbilenetik aldentzeko egin diren irakurketa frenetikoen emaitzak ditugu Sarrionandiak **ehundu** dituen testuak. Berria - Kultura

Palindromoak **ehuntzen** egiten dio ihesi bakardadeari Alina Reyesek. Iñigo Aranbarri

Batasun hori lortzeko herrien arteko harremanak **ehundu** behar dira. Berria - Euskal Herria

Azken egunetan banan-banan **ehunduriko** teoria guztiak arrailtzen ikusiak nituen egun bakar batean. Aingeru Epaltza

Emakumeak ez du inoren fikzio izan nahi; bere gisako istorioa **ehundu** nahi du, ahal izanez gero. Javi Cillero

Betidanik liluratu izan nau ehule kontu metaforiko honek, bere aldaera guzietan: **ehundu**, josi, irun, brodatu, zurtzitu... Patziku Perurena

Azalez eta haragiz jantzi ninduzun, hezurrez eta zainez **ehundu**. Elizen arteko biblia

Zuek **ehundu** ez duzuen betebehar antagonikoen sarean erori zarete harrapaturik. Agustin Otsoa

Baina ez nuenez taxuzko hipotesirik **ehuntzerik** lortu. Karlos Linazasoro

Jendeak esku-zartaz eta goraka hartu zituen Herioren agerpena eta hitzak, halako zalaparta jostari bat **ehundurik** aretoan. Anjel Lertxundi

Eta ehule xaharron omenez, gogora dezagun, testo hitza textus hitzetik datorrela, texo aditzaren patizipio iraganekotik, eta **ehundu** esan nahi duela sortzez. Patziku Perurena

Nagiak ateratzen ari zen gauaren azken itzalek, egunsentiaren estreinako argiek eta kutsadurak **ehunduriko** izara azpian. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
artean ehuntzen (3); **bat ehuntzen** (4); **ehundu eta** (3); **ehuntzen den** (3); **ehuntzen zuten** (3); **eta ehuntzen** (3)

---

ehundura 1 *iz* ehunduriko egitura.

Kutxetako bat zabaldurik, soineko koloretsuak atera bertatik, eta Norari pasatu zizkion haien **ehundura** uki eta senti zezan. Anjel Lertxundi

Urdina baitzen kolorez eta belusezkoa **ehunduraz**. Julen Gabiria

Aipatu dezagun, lehenik eta batez ere, tartekatze kontzeptua: **ehundura** duen gainazal baten aurrean haren azaleraren zati bat estaltzen duen gauza bat. Josu Zabaleta

Eguzkiak ere itsutu egiten du, zuzen begiratzen tematuz gero, bere indarra oso handia delako eta haren irudiak altutik aire garbian zehar bortxaz oldartzen eta begien **ehundurak** jo eta mintzen dituztelako. Xabier Amuriza

Hemen oinez ibiltzea nekosoa izango da, koloreak eta **ehundurak** aldatuko dira, lanpara hau ez da gehiago piztuko, bonbillak ez baitira urpean pizten. Harkaitz Cano

Ez da erraza izaten **ehundurarik** ez duen eremu batean gauza baten mugimendua sumatzea. Josu Zabaleta

Ehundurazko gradienteak behin eta berriro proposatzen dira adibide gisa: azalera makurtuek estimuluan duten korrelatu bezala aurkezten dira. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hurrengo honek ere agertzen du haren izaera, zer **ehundura** finekoa eta zer toki txikian kabitzekoa den, pilatu ahal balitz. Xabier Amuriza

Hurbileko gauzak kolore aseagoz margotu behar dira, soslai zehatzagoz eta **ehundura** lodiagoz. Josu Zabaleta

Adreiluzko horma batek bi ehundura mota izango ditu: **ehundura** latz bat, adreiluen tarteetan, eta **ehundura** xehe bat, adreiluaren beraren mikrolaztasunena. Josu Zabaleta

Horri esker erabaki ahal izaten dira **ehundura** lauso samarra duten gauzen distantzia erlatiboak. Josu Zabaleta

Gauza horien gainazalak egitura fin bat du, gutxi-asko erregularra izan daitekeena, "pikorra", ageriko **ehundura** deitzen dena. Josu Zabaleta

Gizakiak egindako gauzek **ehundura** erregularragoak izan ohi dituzte berezkoek baino. Josu Zabaleta

Koadro betea, haragiaren **ehundura** pikortsua. Josu Zabaleta

Zuraren **ehundura** jakintsua. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Zenbait autoreren iritzian, James J. Gibsonenean batez ere, **ehundura**-gradienteok dira espazioa atzemateko eragilerik garrantzitsuenak. Josu Zabaleta

· Proiekzioak irudi-**ehunduraren** aldakuntza progresibo bat erakusten du: teknikoki gradiente deitu ohi zaiona, hain zuzen. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta ehundura (10)

---

ehunduradun *izond/izlag* ehundura daukana.

Bi eratako ehundura-gradienteen berri ematen dutela irudiek: irudiaren gainazalarenak, **ehunduraduna** izaten baita gehienetan (papera, oihala). Josu Zabaleta

Pertzepzio-jarraitasuna **ehunduradun** gauzak **ehunduradun** azaleretan normal pertzibitzearen zuzeneko ondorioa da. Josu Zabaleta

Objektuak osatzen dituzten azalera **ehunduradunezko** multzoak. Josu Zabaleta

---

ehuneko 1 *iz* ehuneko zenbatekoa. ik **portzentaje**.

Datu horiek ikusita, argi dago EAEn nabarmenki igotzen ari dela euskaldunen kopurua eta **ehunekoa**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Moskovskie Vedomosti egunkarian argitaratzeagatik ordaindu beharreko **ehunekoa** kobratu zuen. Jose Morales

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren helburuak betetzen badira, 2004an 1'7koa izango da **ehuneko** hori eta Europar Batasunari dagokion baliotik hurbilago geratuko gara. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gure inguru hurbilari erreparatzen badiogu, %0'943 izan zen 2000an IGrako Espainiak erabili zuen BPGren **ehunekoa**, hau da, Europako balioari zegokionaren erdia, hain justu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Atmosferan dagoen ur-lurrun kantitatea, tenperatura berean asetasuna eragiteko behar litzatekeen kantitatearen **ehunekotan** emana. Irene Aldasoro

Zalantzarik egon ez dadin, biztanleko errentaren **ehuneko** gisa adierazi da ikasleko gastua taularen zutabe horretan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

2 (izenondoekin)

Ohart gaitezen gure bi erkidego autonomoetan gertatu direla goi mailako hezkuntzari dagozkion taula horretako **ehuneko** garaienak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

• **3** *izlag*

"Halako lekuan" meategi bat bazen, zeinetik **ehuneko** 2 ateratzen baitzen baliozko zerik (ez zidan esan zer) eta **ehuneko** 98 alferkinik, eta hura alboko ibar batean deskargatzen. Juan Garzia

Ehuneko seiko interesari lukuruaren erdia deitzen zaiola, **ehuneko** hiruko interesari lukuruaren laurdena; lukuru osoa, beraz, **ehuneko** hamabikoa litzateke. Iñaki Iñurrieta

Txinatarrek **ehuneko** mila irabazten dute azukrearekin. Iñaki Iñurrieta

Bakardadea ordaindutako prezioaren zati bat baizik ez da izan, prezio osoaren **ehuneko** hogei edo hogeita bost gehienera. Bernardo Atxaga

Garcilaso Incak dio ezen Espainian, Indietako konkistaren ondoren, errentak **ehuneko** hamarretik **ehuneko** bostera jaitsi zirela. Iñaki Iñurrieta

BAM entitate publikoa engaiatu da lan gabezian diren langile guztien pagatzera, hiltegi berrituan hartuak ez direno, beren soldataren **ehuneko** ehunarekin. Herria

4 zenturia.

"Zenturioi batek", esaten da Txildebertoren dekretuan "berea ez den **ehuneko** batean, edo gure leialen mugen barruan lapurra aurkitzen badu, eta ez badio jazartzen, lapurraren ordezko izango da, edota zinegite bidez garbituko du bere burua. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean ehuneko (3); **baino ehuneko** (10); **beste ehuneko** (3); **bozen ehuneko** (5); **buxetaren ehuneko** (4); **da ehuneko** (9); **dira ehuneko** (4); **dute ehuneko** (3)

ehuneko bat (10); **ehuneko batean** (5); **ehuneko berrogeia** (5); **ehuneko berrogeita** (8); **ehuneko berrogeita hamarreko** (3); **ehuneko bi** (4); **ehuneko bost** (3); **ehuneko bostez** (3); **ehuneko ehun** (7); **ehuneko ehuna** (4); **ehuneko ehunean** (26); **ehuneko gisa** (6); **ehuneko gisa adierazita** (4); **ehuneko gudari** (3); **ehuneko gudari taldeen** (3); **ehuneko hamar** (5); **ehuneko hamarra** (6); **ehuneko hamarrez** (4); **ehuneko handi** (9); **ehuneko handi bat** (5); **ehuneko hiru** (7); **ehuneko hiru eta** (3); **ehuneko hiruan** (4); **ehuneko hirurogeita** (3); **ehuneko hogei** (10); **ehuneko hogeia** (3); **ehuneko hogeita** (8); **ehuneko hori** (17); **ehuneko horiek** (4); **ehuneko horrek** (3); **ehuneko laurogeita** (16); **ehuneko laurogeita hamarra** (4)

eta ehuneko (18); **eta ehuneko gudari** (3); **gordinaren ehuneko** (4); **hileko ehuneko** (3); **horien ehuneko** (3); **langileen ehuneko** (3); **milako eta ehuneko** (7); **oso ehuneko** (4); **produktu gordinaren ehuneko** (4); **soldataren ehuneko** (4); **taldearen ehuneko** (3); **urteko ehuneko** (3); **zer ehuneko** (3)

bpgaren ehunekoetan (4); **bpgren ehunekoa** (3); **ehunekoak oso** (3); **eta ehunekoa** (4); **euskaldunen ehunekoa** (3); **euskaldunen ehunekoak** (3); **euskaldunen ehunekoen** (3); **ikasleen ehunekoak** (3)

---

ehunen 1 *iz* kopuru bat banatzen den ehun zati berdinetako bakoitza.

Ehun metro bederatzi segundu eta **ehunen** gutxi batzutan egitera kondenaturik, droga debekatuak hartu zituen korrikalariak. Joxerra Garzia

Gai gara larruazalean milimetro baten **ehunen** bateko deformazioa nabaritzeko. Irene Aldasoro

Segundoaren **ehuneneko** baten denbora-diferentziaz. Jon Alonso

Salerosgai horren parte hori diru-masaren parte bati egokituko zaio; bataren totalaren erdia, bestearen totalaren erdiari; bataren hamarrena, **ehunena**, milarena, bestearen hamarren, **ehunen**, milarenari. Iñaki Iñurrieta

Bere ondasun guztiak emango lituzkeela Pavel Ivanovitxen tasunen **ehunen** bat edukitzeagatik. Jose Morales

59 segundo eta 30 **ehuneneko** denbora eginda 2003an Kosuke Kitajima japoniarrak egindako marka ondu du (59.78). Berria - Kirola

Bigarren Abel Onandi bizkaitarra izan zen 39 **ehunenera**. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Gure mundu osoaren izatea segundo **ehunen** bakan batzuetan jokatu dela. Juan Garzia

Argazki bakoitzeko bi segundo **ehunen**, hiru segundo dira Doisneauk aukeratutako argazkietan guztira "gordetzen" den denbora. Josu Zabaleta

---

ehungarren 1 *ord* zerrenda batean aurretik laurogei eta hemeretzi dituena (100.).

Ea **ehungarren** partida gol batekin eta garaipenarekin ospatzen dudan. Berria - Kirola

Orduan, ordea, mutu geratu nintzen, bihotz-hotz, borreroak **ehungarren** hilketa egiten duenean bezala. Matías Múgica

Bere jaiotzaren **ehungarren** urteurrena dela-eta, Lauaxetaren presentzia nagusitu da euskal kulturan. Joseba Zulaika

Mairuei Lisboa kendu zieteneko hurrengo **ehungarren** urtemugan, bi mila ta berrogeita zazpigarren urtean. Jon Alonso

Beste ordezkaritza bat ginuela ere Hendaian Udabiltza erakundearekin batean "Euskaltzaleen Biltzarra"ren **ehungarren** urteburukari apailatu ekitaldian. Herria

Orain arte ez naiz **ehungarren** orrialdera iritsi. Edorta Jimenez

-Hain ziur nengoen Malfoy zela! esan zuen Ronek, **ehungarren** aldiz edo. Iñaki Mendiguren

2 ***ehungarrenekoz*** *adlag* ehungarren aldiz.

Denbora laburrean, kasik **ehungarrenekoz**, Mikek automata moduan erran zuen: [...]. Itxaro Borda

Elbarriak **ehungarrenekoz** *ekakik* marmaratu zuenean, gontzetarik errautsi kapitainak zaflako bortitzaz mutikoaren gorputza lurrera aurtiki zuen, birindika. Itxaro Borda

Kontaduriako Sisifo nintzen ni eta, heroi mitikoaren antzera, ez nuen sekula etsitzen, **ehungarrenekoz**, milagarrenekoz, berrekiten nien eragiketa gupidagabeei. Joxan Elosegi

---

ehungile *iz* ehungitzan aritzen den pertsona.

Ehungileak lur jota, langile guztiak gogo-galduta. Elizen arteko biblia

Erreka-bazterrean gora doa, ilargi ekidinezinaren erraiñuak ur gainean dantzan, bata bestea gurutzatuz amandre **ehungilearen** orratzen modura. Itziar Otegi

---

ehungintza 1 *iz* ehunak egitea; ehun industria.

Nekazaritzari eta **ehungintzari** babesa eman diete urteetan, eta orain, berriz, pixkanaka liberalizatzen ari dira arlo horietako merkataritza. Iñaki Heras

Ekoizpen mota hau (**ehungintza**, larrugintza, zurgintza, jostailuak, material elektrikoa, etab.), denborarekin, eta berrikuntza tekniko handiren bat ez badago, soldata apaleko eskualdeetara joango da. Koro Navarro

Emakumeak etxe barruan zituen eginkizunak, orain, etxetik kanpo ere betetzen dituelako: **ehungintzan**, hezkuntzan, osasunean eta garbiketa arloan, besteak beste. Berria - Euskal Herria

Eragin handia izan du Aragoi aldeko **ehungintzak** Nafarroan. Patziku Perurena

Horren bitartez, josi, zurgintzan eta **ehungintzan** jardun, eraiki, geometria jakin eta herria gobernatzen du eta. Xabier Kintana

Ehungintzan diharduen Mauleko Les Tissages du Saison enpresa kinka larrian baitago gaur egun. Berria - Harian

Bangladeshen oso inportantea da **ehungintzaren** sektorea. Berria - Mundua

Ehungintzaren esparruan. Koro Navarro

Ehungintzako emakume langileen %60k ez dute kontraturik. Berria - Harian

Ehungintzako langile bat edo Monoprixeko saltzaile bat bezala tratatu. Joseba Urteaga

Ehungintzako eta jantzigintzako inportazioak kontrolatzen Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hamarraldi batzuen buruan, politika horrek indiar **ehungintzaren** hondamena eragin zuen. Koro Navarro

Eman dezagun ingeles **ehungintzaren** produktibitateak gora egiten duela. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emma Zunz-ek, Tarbuch eta Loewenthal **ehungintza**-lantegitik itzultzean, gutun bat aurkitu zuen bebarruaren sakon-sakonean. Juan Garzia

Aipatu behar da izan zela **ehungintza**-industria goiztiar bat, Flandriako eta Italiako merkatari handien ekimenez sortua, eta azpikontratazioz bideratua. Koro Navarro

Ehungintza merkatuaren globalizazioak kinka larrian jarri du XIX. mendean hasitako jarduera. Berria - Harian

Mendebaldeko **ehungintza**-hiri guztien inguruetan. Koro Navarro

Jantzigintza eta **ehungintza** arloan, oso ohikoa da azpikontratazioa. Iñaki Heras

---

ehunka *(1412 agerraldi, 140 liburu eta 812 artikulutan; ETCn 16.147 agerraldi)* *adlag* 1 hainbat ehuneko dituen kopuruetan, kopuru handietan. ik **milaka**.

Zurari heldu, hura gainditu eta **ehunka** etorri zitzaizkidan gainera. Koro Navarro

Argi bat baino gehiago ikusi zuen: **ehunka** ikusi zituen, denak batera. Julen Gabiria

Ehunka ikusiak nituen halako gizonak Errusian. Matías Múgica

Dorrea inbaditu dutela, hire kideak **ehunka** akabatu dituztela eta presoak hanka egin duela. Agustin Otsoa

Diosesako apezek katedralea **ehunka** betetzen zutelarik, gutarik 25-ek Ordena saindua ukan ginuen goiz hartan. Herria

Han agertzen dira hegaztiak, batzuetan **ehunka**, mota guztietakoak. Gotzon Garate

Txoriak **ehunka** eta milaka abiatzen ziren hegan, txio-txioka pozaren pozez. Karlos Zabala

Ehunka joaten ziren entzuleak, trumilka, haren eskoletara. Jon Muñoz

Metrailadoreen edo tiro bizkorreko kanoien tiro jasa bakoitzak **ehunka** jaurtitzen ditu obusak edo bala argitsuak. Josu Zabaleta

Saguzarren aldrak agertu ziren, dozenaka, **ehunka** agian, ilunabarreko argitan hegaldi nahaspilatsuan. Txillardegi

Zabalak dioenez, Euskal Herrian Sustatuk bidea hasi zuenetik, **ehunka** dira azken urteetan euskaraz sortutako blogak. Berria - Harian

Beldurrik gabe, ahalge izpirik gabe, aitortzen du **ehunka** direla, milaka behar bada. Herria

Dozenaka edo **ehunka**, esan nuen, begiz, eta orduantxe jabetu nintzen dozenaka edo **ehunka** zirela, zinez, hildakoak. Karlos Linazasoro

Ehunka dira Eskualdeko Ofizialak eta, arau berriekin, oraindik gehiago behar dituztela esaten dute. Agustin Otsoa

Irudiak **ehunka** heldu zitzaizkion. Ramuntxo Etxeberri

Otsoak **ehunka** zebiltzan oraindik hara-hona korrika izotzen artean. Karlos Zabala

Alargunak eta umezurtzak **ehunka** utzi zituen atzean. Edorta Jimenez

Ehunka izan baitziren liburuxkan idatzi zuten pertsonak. Berria - Harian

Trenbidearen bi aldeetan, txabolak eraikiak izan ziren, **ehunka**. Ramuntxo Etxeberri

Ehunka Donostian, eta mila inguru Bilbon. Berria - Ekonomia

2 (izen mugagabe baten ezkerrean)

Ehunka lagun iristen da egunero hona, zahar eta ume, eri eta osasuntsu, Hitlerren beldur. Anjel Lertxundi

Ehunka lagun ziren bilduak Bizkaiko herri ttiki hortan. Herria

Ehunka pertsonak egin du bat Bilgune Feministaren deialdiarekin. Berria - Euskal Herria

Eraso hori izan aurretik, **ehunka** xiitak manifestazioa egin zuten hiriko kaleetan. Berria - Mundua

Ehunka guardia zibil etorri ziren eta etxe guztiak miatzeari eta mendiak patruilatzeari ekin zioten. Bernardo Atxaga

1936: **Ehunka** irlandar, IRAko kideek zein ohiek Espainiara jo zuten, bi aldeetan borrokatzera. Berria - Harian

Milinkievitxek eta haren **ehunka** jarraitzailek Minskeko Urriko Plazan jarritako oihal aterpeetan igaro zuten astelehen gaua. Berria - Mundua

Eguneroko bizitzan **ehunka** pizgarri daude, legezkoak eta legez kanpokoak. Berria - Kirola

Ehunka urte dituzten olibondoak dira. Berria - Kirola

Harri trinkoa, zeparik gabea, **ehunka** gizoni **ehunka** urtez lan emateko modukoa. Juan Garzia

Suge hau, tamaina erraldoia izan eta **ehunka** urtetan bizi daitekeena, oiloaren arrautzatik sortzen da, apoak azpian berotuta. Iñaki Mendiguren

Erresumak **ehunka** gizon galdu zituen egun haietan, hilik franko, preso ez guti. Aingeru Epaltza

Arabako metalgintzako **ehunka** langilek manifestazioa egin zuten atzo arratsaldean Gasteizen **Ehunka** neska-mutil lizentziatu ziren Euskal Filologian, klasikoen uretan edan zuten **ehunka** neska-mutil, literatur berpizkundeko masa kritikoa izango ziren **ehunka** neska-mutil. Berria - Ekonomia

Ehunka gerlarik eta baserritarrek agur egiten zioten euren askatzaileari. Joanes Urkixo

Gero **ehunka** orein-larrurekin itzultzen zen. Fernando Rey

Zabalera handiko berrogeita hamar ontzi eta **ehunka** batel txikiago. Agustin Otsoa

Circle Café kafetegiaren kanpoaldean eseria nintzen **ehunka** jende etorbidean gora eta behera ikustera Haien gainean jarririk, lauza itzelak, marmolezkoak haiek ere, eta ez dago haietarik bakar bat ere mugitzerik, ezpada **ehunka** gizonen indarrez. Oskar Arana

Ehunka bizantziotar erudito eta itzultzailek ihes egin zuen, **ehunka** greziar liburu eramanik berekin. Jon Muñoz

Ez nukeen **ehunka** urtean uste izango horrelako emazte baten balioa ez aintzat hartzeko bezain mentsa izango zenik. Oskar Arana

Beste zenbait **ehunka** gizonek fardel arinak zeramatzaten posta-zaldiekin. Agustin Otsoa

Hango kartzela batean dute Izaskunen gizona, **ehunka** urtetarako kondenaz. Xabier Montoia

Ehunka gramo batzuk gantz-azido lapurtuak nituen. Juan Garzia

Ehunka mila pertsona bideetan ihesi zihoazen, iparralderantz. Juan Kruz Igerabide

Ehunka milioi urteko eboluzioan aldatu gabe jarraitu duten sekuentzia asko berdinak dira, gure arbaso beretik jasoak. Berria - Gaiak

Ehunka eta **ehunka** argazki. Harkaitz Cano

· Ez nukeen **ehunka** urtean uste izango horrelako emazte baten balioa ez aintzat hartzeko bezain mentsa izango zenik. Oskar Arana

Branek **ehunka** metrora ezagutzen du haren usaina. Joanes Urkixo

3 (izen mugatu baten ezkerrean)

Banekien halako kasuek, benetako nahiz balizkoek, **ehunka** urteetan zer pentsatua eman zietela filosofo eta psikologoei. Xabier Olarra

Orriaren gudu-nahasmenean hantxe zebiltzan Hiru den eta Bat den Jainkoa, Irlandako jainkoki paganoak eta handik **ehunka** urteetara, Aro Nagusiaren hasieran, borrokatuko zirenak. Juan Garzia

Atzera egin behar izan du errepublikar osteak; bere 50.000 soldaduak, **ehunka** zaldiak, eta bere 100etik gorako kanoiak arrapaladan Erribera aldera garraiatuz. Txillardegi

Ehunka argazki horiek maiz izan zituen hizpide Olaldek. Berria - Kultura

Ehunka kilometroak egitera bizikletaz. Juan Garzia

Ehunka geneak behar bide dira abaraska-tankerako begi bat edo dilista-tankerako begi bat fabrikatzeko. Juan Garzia

Tiroketa aitzinago gertatzen ari da, bera dagoen tokitik **ehunka** metro batzuetara. Aingeru Epaltza

4 (izen gisa)

Ehunka batzuk lurrera erori ziren, eta hantxe gelditu gorpu. Karlos Zabala

Nahas ditzagun talde horiekin kalender **ehunka** batzuk, eskeko fraide antzekoak, zarpail jantziak. Karlos Zabala

Beste mandatu batzuen artean, nekazari **ehunka** batzuk Babes Batzordean bahitzeko ahaleginak egin zitzala eskatu zioten. Jose Morales

Jeepetan eta gudako gurdietan sartu ziren herrian **ehunka** batzuk soldadu. Jon Maia

Horra non gauden garraio bagoien aitzinean geldituak, **lau ehunka**, kondatuak eta berriz kondatuak. Marzel Etxehandi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzo ehunka (12); **azken hilabeteotan ehunka** (4); **baina ehunka** (4); **beste ehunka** (27); **bildutako ehunka** (9); **bildutako ehunka lagunek** (4); **da ehunka** (4); **dauden ehunka** (5); **dira ehunka** (6); **dira eta ehunka** (4); **diren ehunka** (19); **dituzte ehunka** (5); **dozenaka edo ehunka** (4); **dute ehunka** (17); **dute ehunka lagunek** (9); **duten ehunka** (7); **edo ehunka** (7)

ehunka aldiz (6); **ehunka argazki** (7); **ehunka artikulu** (7); **ehunka batzuk** (8); **ehunka begi** (4); **ehunka bider** (4); **ehunka bildu** (4); **ehunka dira** (15); **ehunka edo** (8); **ehunka edo milaka** (7); **ehunka emakume** (5); **ehunka eta** (26); **ehunka eta ehunka** (16); **ehunka eta milaka** (9); **ehunka etorkin** (5); **ehunka etxe** (7); **ehunka etxebizitza** (5); **ehunka gazte** (17); **ehunka gaztek** (4); **ehunka gizon** (8); **ehunka herritar** (12); **ehunka herritarrek** (17); **ehunka hildako** (16); **ehunka hildako eragin** (4); **ehunka hildako eta** (4); **ehunka ikasle** (6); **ehunka immigrante** (4); **ehunka irakiar** (4); **ehunka izan** (6); **ehunka jarraitzaile** (5); **ehunka jende** (6); **ehunka kide** (4); **ehunka kilometro** (6); **ehunka kilometrora** (10); **ehunka lagun** (108); **ehunka lagun atera** (4); **ehunka lagun bildu** (29); **ehunka lagun elkartu** (6); **ehunka lagunek** (70); **ehunka lagunek hartu** (5); **ehunka lagunen** (15); **ehunka lagunen aurrean** (5); **ehunka langile** (7); **ehunka langilek** (5); **ehunka liburu** (4); **ehunka manifestari** (9); **ehunka manifestarik** (6); **ehunka metro** (5); **ehunka mila** (56); **ehunka mila lagun** (4); **ehunka mila lagunek** (4); **ehunka mila pertsona** (8); **ehunka milaka** (6); **ehunka milioi** (17); **ehunka militante** (6); **ehunka ordezkarik** (5); **ehunka palestinar** (6); **ehunka palestinarrek** (6); **ehunka pertsona** (45); **ehunka pertsona bildu** (6); **ehunka**

pertsona hil (7); **ehunka pertsonak** (9); **ehunka preso** (10); **ehunka senide** (5); **ehunka senide eta** (4); **ehunka soldadu** (10); **ehunka tona** (5); **ehunka urte** (9); **ehunka urteko** (4); **ehunka zauritu** (16); **ehunka zauritu eragin** (5); **ehunka zibil** (8); **ehunka ziren** (4)

ere ehunka (8); **eskatu dute ehunka** (5); **eta ehunka** (108); **eta ehunka lagun** (4); **eta ehunka mila** (4); **eta ehunka pertsona** (5); **eta ehunka zauritu** (14); **gero ehunka** (4); **handik ehunka** (4); **herrian ehunka** (4); **hil eta ehunka** (9); **hilabeteotan ehunka** (4); **joandako ehunka** (5); **osoko ehunka** (6); **urtero ehunka** (9); **zen ehunka** (4); **zeuden ehunka** (6); **ziren ehunka** (32); **zituen ehunka** (4); **zituzten ehunka** (7); **zuten atzo ehunka** (5); **zuten ehunka** (15)

---

ehunkada *iz* ehuneko batzuen kopurua.

Egia da ordea, garaian doinu jakin batzuk jartzen direla purian eta bertsolariek ez dituztela bi mila eta laurehun doinu horietatik **ehunkadaren** batzuk baino erabiltzen jendaurreko ekitaldietan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

ehunki *iz* ehuna.

Hemendik harantz, eunukoak, esklabuak, morroiak, **ehunkiak**, larrukiak eta armak eramaten zituzten, batik bat. Patziku Perurena

Bazirudien lehendabizikoz ikusten zuela, begira-begira baitzegoen; halakoxea izaki, musuzapiaren **ehunkiak**, eiteak eta balizko erabilerak sorrarazi bide zioten jakin-mina. Mirentxu Larrañaga

---

ehunkoiztu, ehunkoitz, ehunkoizten du *ad* ehun halako bihurtu edo egin, ehun aldiz handiago bihurtu edo egin.

Heure buruari esaten diok Bizantzio dela hori, heure dirua hirukoizten ari dela; laukoiztu, hamarkoiztu, **ehunkoiztu**, milioikoztu, miliarkoiztu egingo dela; heure arrebatxoa gogoan hartu, eta hari emango diok irabazitakoaren erdia; bost axola zaik, hurrengo unean kopuru hori halako bi irabaziko baituk. Jon Muñoz

---

ehunta ik **ehunda**.

---

ehuntari *iz* erromatar armadan, ehun soldaduren buru zena. ik **zenturioi**.

Bazen Zesarean Kornelio izeneko gizon bat, "Italika" zeritzan gudu-taldeko **ehuntaria**. Elizen arteko biblia

Bazen han erromatar **ehuntari** bat, eta honek morroi bat zuen oso maitea; morroia gaizki zegoen, hilzorian. Elizen arteko biblia

Eta **ehuntariaren** fedea miretsiko du. Herria

Horietako guztiak ez dira legatuak edo tribunoak edo **ehuntariak** edo horien azpiko graduetako ofizialak. Iñaki Mendiguren

---

ehuntsu *zenbtz* ehun gutxi gorabehera.

Benetan direla apartak opari hartuta edo erosita bildu ditudan **ehuntsu** liburuok. Berria - Kultura

Zer ikusteko ote dugu guk gure aitonaren aitak orain **ehuntsu** urte egin omen zituenekin? Anjel Lertxundi

Zinpeko zaindariak ere adiago ikusi ahal izan nituen, **ehuntsu** bat, zartailuarekin erdi jolasean bezala, titiriteroen antzera, baina disziplinaren legea ezarriz. Karlos Linazasoro

---

ehuntze *iz* irazkiko hari edo kidekoen artetik bilbekoak pasaraziz ehuna moldatzea. ik **irute**; **ardazketa**.

Orain, bizidun batekiko harremanen **ehuntzea** zein zaila zaidan ohartzen naiz. Itxaro Borda

Ehuntzea da izkiriatzearen lehen metafora. Patziku Perurena

---

ehunurren *iz* ehun egun jarraituko multzoa.

Nekez zabalduko zuen egunkari, aldizkari, hilabetekari, urtekari edo **ehunurreneko** gomendiozko libururik, zinema-zerrenda begiratzeko ez bazen. Javi Cillero

---

ehunurte *iz* mendea, gizaldia.

Horregatik, **ehunurte** bakoitza -azkenengoak kontuan hartuta-, 1700, 1800, 1900 urte horietakoa ez da bisustua izaten. Pello Zabala

---

ehunurteko *iz* ehun urteko denbora bitartea.

1931n, Hegel-en heriotzako **ehunurtekoan**, Ortega-k haren filosofiaren errepaso bat eman zuen argitara. Joxe Azurmendi

Ortega-ri ez zaio asko gustatu Unamuno-ren Don Quixoteren irakurkera, eta **ehunurtekoaren** kariaz ugaldutako kixotismoaren glosekin [...] ez da gustura gelditu. Joxe Azurmendi

---

ehunurteurren *iz* mendeurrena.

Besteak beste, Donostiako **Ehunurteurrenaren** plazarako obra bat egin zuen. Berria - Kultura

---

ehunzango *iz Chilopoda* ordenako artropodoa, gorputza bina zango dituzten hainbat eraztunez osatua duena.

Inurriak zebiltzan lasterka nonahi, baita **ehunzangoak** eta zomorroak ere. Monika Etxebarria

Lurreko estalki plastikoa altxatuz gero, era guztietako zomorroak mugitzen ziren azpian: inurriak, kukurutxak, **ehunzangoak**... Juan Kruz Igerabide

Izan duen amesgaiztoan zomorroz josita ikusi du lorategia: larbak, beldarrak, kotxorroak, **ehunzangoak**, ipurtsardeak, armiarmak, kilkerrak, tximitxak, katu-bizarrak... denetarik! Patxi Iturritegi

Eta ispilu batera hurbilduko da, ahoa irekiko: eta mihia **ehunzango** bizi-bizia bilakatua izanen du, hankak bizkor eta etengabe higituko dituena eta aho-sabaia urratuko diona. Monika Etxebarria

---

ei[1] **1** *part* hiztunak aditzera ematen duenaren berri entzunez (ez ikusiz) jakin duela adierazteko erabiltzen duen partikula. ik **omen**[1].

-Inoiz bildu den armadarik handiena **ei** da gurea -esan nion. Edorta Jimenez

Lorik eza osasun arazo larria bihurtzeko bidean **ei** da. Berria - Gaiak

Bere amaren esaldi bat aipatu zidan orduan, zera, gizaki ororentzat **ei** dela ulergarri artea, sasijakintsuarentzat izan ezik. Joxe Austin Arrieta

Ezkerrekoak **ei** diren alderdi frantsesek, eta zenbait abertzalek ere bai, sudurra estalita emanen omen diote botoa Chirac-i hurrengo aukeran. Hasier Etxeberria

Nahikoa txarto aurkitzen **ei** zan. Xabier Amuriza

Kobrea eta zinka, berriz, uste baino %20 eta %27 gehiago ari **ei** dira garestitzen. Berria - Harian

Itoizko urtegia kontrolik gabe betetzen ari **ei** dira. Berria - Ekonomia

Goiz hartan bihotz-apal **ei** zebilen bergararra. Koldo Izagirre

Eguzkia egunero irteten **ei** da. Sonia Gonzalez

Alferrik izan **ei** zen azaltzea baimena zeukala eta inoiz ez zuela legearen atal bakar bat ere hautsi. Urtzi Urrutikoetxea

Irudi batek mila berbak baino gehiago balio **ei** du. Berria - Euskal Herria

Egotzia izanak -paradisutik, amaren epeletik- egiten **ei** du gizakia gizaki. Markos Zapiain

Oso oinaze arraroak **ei** ditu. Josu Landa

Marrazkilaritza **ei** zuen lanbide, artista, alegia, baina lanbidea ez ezik bizibidea ere hartatik omen, nonbait. Joxe Austin Arrieta

Basatia, egoista, gizamunstroa, zeharo bihozgabea **ei** nintzen, esan zidanez. Joxe Austin Arrieta

Idako mendi garaietatik argisentian su dispertsoak ikusten **ei** dira eta gero globo bakarrean bezala batzen eta diskoa osatzen **ei** dute. Xabier Amuriza

Polizia irakiarrak 11 suziri atzeman **ei** zituen atentatu saioaren lekuan. Berria - Mundua

Ondorioz, familia lur jota **ei** dago eta euren alboan egon nahi du. Jon Arretxe

Biharko artikulu bat eraman behar **ei** diok. Unai Iturriaga

Maitasun handia erakusten **ei** zien elkarri. Gotzon Garate

Roberto Hernandezi tiro bat eman **ei** zioten DISIPekoek mundu guztiaren aurrean. Pako Aristi

Papagaiak ere apenas **ei** zekien deus: [...]. Joxe Austin Arrieta

Ez omen zegoen berrarmatzearen aldeko ezein alemanik, baina errusiarrak behartzen **ei** zuen hartara Amerika. Joxe Austin Arrieta

Baten batek esan **ei** eban berak Rufinok soinua jota dantzan egin gura eukeala, antxina lez. Xabier Amuriza

2 (ezezko esaldietan)

Ez **ei** da, ez, batere parte onekoa, goizeko lehen ordu oskarbitu horien ostean, lainoa sartzen denean. Pello Zabala

Ez **ei** dabil behar bezain fin. Harkaitz Cano

Ez **ei** da lehenengo aldia izan, eta ez bide da azkena izango. Jon Arretxe

Ez **ei** dira konformatzen egunkariaren edo albistegietan emaniko iragarpenarekin. Pello Zabala

Elkarrizketa egitera etorri zitzaizkion kazetariei ere, 1924an, ez **ei** zieten auzoek non bizi zen esan gura. Koldo Izagirre

Ez **ei** zen fede kontuengatik izan, muturra sartzeagatik baino. Edorta Jimenez

Garaileek ez **ei** zuten gehiegikeriarik egin, ez eta garaituek erregurik. Edorta Jimenez

Izan ere, herriaren arima kontuaren ukoa, herriaren existentziaren uko bihurtu dute orain batzuek: beste herririk ez **ei** dago konstituzionala baino. Joxe Azurmendi

Fuelaren bonban ez dakit zer konpondu behar duelako, eta eguerdira arte ez **ei** da itzuliko. Josu Landa

Zergatik, ezin **ei** du azaldu. Urtzi Urrutikoetxea

Jeltzaleek, halakoetan, ez **ei** zuten botorik ematen. Berria - Euskal Herria

Naturak jainkoen ahalmen gabe ezin **ei** ditu gizakien premietara hain ondo egokitu urtaroen aldakuntzak eta fruituen sorkuntza eta beste gauza guztiak. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agertu ei (5); **ari ei** (8); **asmoa ei** (4); **ba ei** (21); **baino ez ei** (6); **bat ei** (13); **be ez ei** (5); **behar ei** (17); **behar ei zuen** (4); **bizi ei** (5); **egin ei** (21); **egin ei zuen** (4); **egingo ei** (5); **egiten ei** (22); **ei da** (124); **ei dabil** (9); **ei dabiltza** (4); **ei dago** (26); **ei daude** (4); **ei dauka** (5); **ei dela** (4); **ei den** (10); **ei dio** (11); **ei dira** (49); **ei diren** (4); **ei ditu** (18); **ei dituzte** (10); **ei dok** (4); **ei du** (46); **ei dute** (39); **ei eban** (23); **ei eben** (4); **ei eutsan** (5); **ei ginen** (4); **ei jakon** (6); **ei zan** (26); **ei zebiltzan** (4); **ei zegoen** (17); **ei zekien** (4); **ei zen** (91); **ei zen eta** (6); **ei zena** (5); **ei zeuden** (6); **ei zeukan** (6); **ei zien** (6); **ei zieten** (4); **ei zion** (37); **ei zioten** (10); **ei ziren** (39); **ei zituan** (6); **ei zituen** (17); **ei zituzten** (10); **ei zitzaion** (7); **ei zuen** (83); **ei zuten** (25); **eman ei** (9); **entzun ei** (4); **ere ez ei** (4); **esan ei** (24); **esan ei zion** (7); **esaten ei** (12); **esaten ei zion** (4); **eta ba ei** (4); **eta ez ei** (4); **etorri ei** (4); **ez ei** (134); **ez ei da** (22); **ez ei dago** (7); **ez ei dira** (6); **ez ei du** (8); **ez ei dute** (8); **ez ei eban** (4); **ez ei zan** (4); **ez ei zegoen** (5); **ez ei zen** (11); **ez ei zuen** (8); **ez ei zuten** (7); **ezin ei** (5); **hartu ei** (7); **hartu ei zuen** (4); **hasi ei** (5); **ibili ei** (6); **ikasi ei** (5); **ikusi ei** (6); **ikusi ei zuen** (4); **ikusten ei** (5); **izan ei** (34); **izan ei da** (5); **izan ei zen** (14); **izan ei zuen** (5); **izango ei** (7); **izango ei da** (4); **izaten ei** (8); **nahi ei** (4); **ona ei** (5); **onena ei** (4); **saiatu ei** (4)

---

ei[2] *interj* deitzeko edo arreta eskatzeko hitza. ik **e**.

-Ei ! -oihu egin zuen-. Aitor Arana

Ei , Bernardo! Juan Garzia

Ei , hi!, egin zion Hermannek dei. Anjel Lertxundi

-Ei , Harry! -esan zion Seamus Finniganek, Harryren brontzezko haztagak hartzeko makurtuz-. Iñaki Mendiguren

Ei , Mitch, ez hadi lokartu! Xabier Paya

Ei , zu, kasurik ez? Kalera! Berria - Kirola

- **Ei** , neska-mutilak -Sara zen, tabernan sartu berri-. Jon Alonso

- **Ei** txalupakoak! Juan Garzia

- **Ei** , alprojak! -Alexen ahotsa zen-. Fernando Morillo

Ei , txo, kontuz. Sonia Gonzalez

-Ei , ba, nik ikusi dinat -hasi zen Irene-. Fernando Morillo

-Ei -begiekin keinu alai bat egin zidan Sinbadek-. Edorta Jimenez

-Ei , aski da! -Dani besarkatu, besoetatik helduz, eta Joanengadik bereizten du-. Antton Olano

- **Ei** ! Egongo al haiz hor? Fernando Morillo

Lagundu, lagundu, **ei** ! Juan Garzia

Ei , **ei** , baina zein moja inklusatatik lapurtu haugu? Harkaitz Cano

Oraindik ere gogoratzen zara nire idazlan hartaz, **ei** ? Oskar Arana

---

eiakulatu, eiakula, eiakulatzen du *ad* hazia ixuri.

Baina badira gizonezkoak gauean amets erotikoekin bakarrik **eiakulatu** dutenak. Luis Elberdin

Banan-banan, **eiakulatzeko** unea iristen zitzaigunean, zutik jarri eta, orgasmoa izatean, osabak eta Maitek hazia txorrotan irteten ikusteko moduan jartzen ginen. Aitor Arana

Gizasemea ez dago berdin **eiakulatu** aurretik eta **eiakulatu** ondoren. Luis Elberdin

Badakigu zintzilikarioaren neurriak, gogortasunak eta **eiakulatu** arte irauten duen denborak ez dutela zerikusirik emakumearen plazer eta orgasmoarekin. Luis Elberdin

Lehenik Imanolek **eiakulatu** zuen nire ipurdi barnean. Aitor Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eiakulatu ondoren (3)

---

eiakulatzaile *izond/iz* eiakulatzen duena.

Eiakulatzaile goiztiarra naiz. Luis Elberdin

---

eiakulazio *(orobat **ejakulazio** g.er.) iz* eiakulatzea.

Uztaileko larunbat eta igande hartako eszena lauso bera berrikusten nuen behin eta berriz: maitasunaren mugimenduak, **eiakulazioa**. Joseba Urteaga

Umetokiaren ahoak gizonaren zakila estutu egiten du, eta bertan biltzen dira haziak: batetik emakumearena, guruinen isurketak eragindakoa, eta bestetik gizonarena, laster erakutsiko dizugun **eiakulaziotik** datorrena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orgasmorik gabe ez dago **eiakulaziorik**, eta **eiakulaziorik** gabe ez dago ugalketarik. akabo nostalgiaren udazken kolorea, paperezko muxuen dardara zinema osteko gau itxietan, **eiakulaziorik** gabeko etorriak masail erorietan. Luis Elberdin

Gerta zitekeen Garazik mutilari aurpegiratzea haren **eiakulazio** goiztiarra, errespetu falta, haren berekoikeria. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eiakulazio goiztiarra (7)

---

eian ik **ea**.

---

eibartar *izlag/iz* Eibarkoa, Eibarri dagokiona; Eibarko biztanlea.

Badaude bertso zahar batzuk, Bolunburu **eibartarrak** eginak, gure erromeria hura ongi esplikatzen dutenak. Koldo Izagirre

Juan San Martin **eibartarraren** *Eztenkadak* liburua zen. Txillardegi

Patxi Usobiaga **eibartar** eskalatzailea munduko xapeldun bilakatu da Chamonix-en. Herria

Toribio Etxebarria sozialista **eibartarra** ere antzeko iritzikoa genuen trikitixa koplei buruz. Koldo Izagirre

Eibarren **eibartar** eta Euskal Herrian euskal herritar izatea delako kontua. Koldo Zuazo

34 urteko **eibartarra** da. Berria - Euskal Herria

Ustekabean harrapatzen haute beti **eibartarren** erderismoek. Pedro Alberdi

61 urteko **eibartar** bat hilda aurkitu zuten igandean Calzada de Bureba herrian. Berria - Euskal Herria

---

eibartartu, eibartar(tu), eibartartzen da/du *ad* eibartar bihurtu.

Eibartartua zegoen bergararra. Koldo Izagirre

Hara eraman zuten Jazinto Rivas ere, beste **eibartar** mordo batekin. Koldo Izagirre

---

eidetiko *izond* filosofian, esentziari dagokiona, existentzia bazter utziz.

Edmund Husserl-en kontzientziaren fenomenoetarako itzulera eta intuizio **eidetikoak**. Askoren artean

Bere memoria **eidetikoari** esker, ikusten zuen oro garunetan artxibatzen zuen, argazki kamera baten azkartasunaz eta objetibitatez. Karlos Linazasoro

Margolanen eta argazkien antza ikusi nuenean, pentsatu nuen jenio bat neukala aurrean, artista **eidetiko** bat: begi-kliskadak irauten duen bitartean eszena bat behin ikusi, eta ordutan edo egunetan gogoan eduki zezakeena. Xabier Olarra

Haien oroimena, ordea, ez zen fotografiko edo **eidetikoa**, ez; kategoriko edo analitiko izatetik hurbilago zegoen. Xabier Olarra

---

eidolo ik **idolo**.

---

eiektibo *izond* kontsonanteez mintzatuz, airea glotisaren goranzko higidura batez bulkatzen dena.

Kontsonante **eiektibo** eta inplosiboak, aire-etorriari dagokiola, glotis-mekanismoaz (glottalic airstream mechanism) sortzen direla esan ohi da. Lourdes Oñederra

Gogoan izan behar da kontsonante **eiektiboak** ahoskabe izaten direla, baina inplosiboak ahostun izaten direla. Lourdes Oñederra

Traba (hersketa) bikoitzaz ahoskatzen direnak ere badira: **eiektiboak**, inplosiboak, klikak. Lourdes Oñederra

---

eihalartar ik **eiheralartar**.

---

eihartu, eihart, eihartzen 1 da/du *ad ipar* ihartu, ahitu.

Landare bat **eihartzen** den bezalaxe, emeki-emeki, egunez egun, lehenik kolorez aldatuz, gero hostoak galduz, gero idortuz, arrunt murriztu eta lurreratzeraino. Filipe Bidart

Lehenagoko Gernikako arbolari adar bat moztu zioten 1827an eta **eihartu** zen betikotz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Maiatz loretsu huntan, Mendekoste asteleheneko lorea **eihartu** zaiku. Herria

Urtetik urtera, bakarrik dagoena **eihartzen** da, bere mundu hetsi horretan bere adimena ere hesten da, mintzaira murrizten zaio, hiztegia bezala. Filipe Bidart

Oso bestelakoa da gaztelaniarekiko edo frantsesarekiko morrontza itsua onartzea, oso bestelakoa norberaren senari **eihartzen** uztea, oso bestelakoa euskaran betidanik izan duguna bertan behera uztea. Koldo Zuazo

Mehetegiko xakurra **eihartua** zela, beti goseak hila eta kukusoz betea. Herria

Gizon ederra zen gerlak iraun zuen urte beltz hauetako kasik bere maitale bakarra, etxerako premiazkoak ziren gauza materialen harrapatzaile suharra, bestela denak miseria gorria **eihartuko** baitziren. Itxaro Borda

2 (era burutua izenondo gisa)

Haritz **eihartuaren** ondotik heldu da haritz gaztea, lehen bezala orain ere Euskaldunen ikurra. Herria

Aurpegi ikaratua, begi sartuak, larru **eihartua**. Eneko Bidegain

So egonez xipa-zainei beren zango **eihartu** erdi hautsiekin uraren arbelan geometriko ariketak egiten. Piarres Aintziart

---

eihera *iz* **1** errota.

Hil zen arte zaindu zuen **eihera**. Pablo Sastre

Ustezko sendagaitik kantitate doia gaineratu, martxan jarri **eihera** ingurura bilduen begirada eszeptikoen pean. Juan Garzia

Duela orain berrogeita hamar bat urte, hartu zituztela harri bat edo bi, Ondarlako **eiheran** ezartzeko, oraino egiten baitzen irina Luzaideko **eiheretan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eskuak nekatu gabe bizitzeko esperantza zukeen, demagun, **eihera** edo errota baten errentez bizi artean gozatuz. Aingeru Epaltza

Eiheraren aterabideko kanalean. Joan Mari Irigoien

Ene liburu gehienak horrela eginak dira, zatika, ibai baten isurian **eiheren** barrakiak aurkitzen diren bezala. Ana Urkiza

Jauntxoek omena atxiki zuten eta lur, etxalde eta **eiheren** jabe egon ziren. Elena Touyarou

Roblesen **eihera** horretan baziren lau harri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Istilarte auzoko **eiheran** bizi zen. Elena Touyarou

Biba hi eta **eiherakoa** astoa! Herria

Herri apartatu bateko **eihera** berritu baitzuen bost urtetan, emaitza ikusgarriekin, iparraldean, hor nonbait. Jon Alonso

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Urbide luze baten azpitik pasatu ondoren, **eihera** zahar baten aitzineko harri gainean jarririk pixka bat jaten dut. Piarres Aintziart

Oraino gorago joanez, hona Roblesenea, [...] bere **eihera** berezia erreka bazterrean, zeintan okre tindua egiten baitzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gurpil-harrizko **eiherak**. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eihera errekan zegoen eta handik goiti, errepideraino badira harresi edo zutoin batzu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lur hori lehertzen edo ehoten zuten **eihera**-harriak iduriko batzuetan. haiek ezin izan baitzuten pagatu, bere mutilak igorri zizkien, **eihera** harriaren eta tresneria guziaren bahitzera, zorraren zati bat berreskuratzeko estakuruan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baziren lau irin **eihera** eta gainera oihalen tindatzeko okrea egiten zuen bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laborariak, karrika hegian punpa eta jauzika hasten ziren, besoak atzoko haize-**eihera** zaharren antzera itzulikatuz. Itxaro Borda

Xehetze saileko buruarekin ados jarri, sartu pala-**eihera** koxkor batean ikusteko eta ukitzeko hain desatsegin ziren gibel haietako bi. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eihera edo (6); **eihera edo erroten** (3); **eihera eta** (3); **eihera harriak** (3); **lehengo eihera** (4)

---

eiheralartar *(orobat **eihalartar**) izlag/iz* Eiheralarrekoa, Eiheralarri dagokiona; Eiheralarreko biztanlea.

Urte zonbaiten buruan bere sort lekurat itzuli baten egiterat juan eta ezagutu zuen Ana Etchehandy **Eihalartar** andere gaztea eta laster ezkondu ziren. Herria

---

eiherazain *iz* errotazaina.

Garazi-Baigorriko agoteek lan apalenak egiten dituztela: **eiherazain**, zurgin, atabalalari eta txistulari. Herria

Eiherazaina garai haietan, pertsonaia bat zen! Beti haizeari adi, ontzi bateko lemazaina zirudien! Pablo Sastre

-Enrieta delakoa **eiherazainaren** seme gazteenaz maitemindu zen. Elena Touyarou

Agure urguilontzi hark aita-amen bizia izorratu zuen, aitatxi **eiherazaina** hilarazi, familia guzia erbesteratzera behartu, eta oraino bazuen kopeta harroarena egiteko. Elena Touyarou

Lauragaiseko azkeneko **eiherazaina**, berriz, Cambiac-eko Marius izan zen. Pablo Sastre

Hamasei zatitxo beraz, sailkatuak, hau artetik erraiteko, lehengo **eiherazainek** kondatzeko erabiltzen zituzten marratxo gisako xifre bereziekin. Herria

---

eiho ik **eho**[1].

---

eijer ik **eder**.

---

eijerki ik **ederki**.

---

eiki *adlag* baiki, egiazki.

Eiki, bizia une orotan, hondar hautuan trenkatzen zen, hauta eremua gero eta hertsiago izanagatik. Itxaro Borda

Eiki, hura ostatua zen. Koldo Izagirre

Ez zuen ez, bestalde, penaz lehertzeko aitzakiarik: **eiki**, Andderen bi umeak ardura ekartzen zizkioten zaintzeko, halaber Maiteren mutikoa eta Gilenena, astezkenetan. Itxaro Borda

Ele ederra **eiki** merke dute herri aberats horiek. Herria

Izan dira **eiki** solas balios frango, haatik gauza funtsesko guti da hetarik atera. Herria

Hura da **eiki** herriaren buru jarri. Herria

Izan da **eiki** kalapita eta eztabada, bereziki Khadafi Liby-ako presidentak sor arazirik. Herria

-Ez dut **eiki** ikuskizuna huts egin nahi. Itxaro Borda

Hirugarrenik, dator ez dituela nehork bereizi behar, nehork **eiki** egin ez dituen bezala, delako Agustinen Moises kapituluko hitz hauek ber berak: [...]. Piarres Xarriton

Gertatzen da **eiki**, gaitz baten beldur garenean arrazoirik gabe, beldurra desagertzea egiazko berria entzutean. Piarres Xarriton

Bai **eiki**, ezagun du jalgiak garela Frantziatik. Koldo Izagirre

Bera izan zen, **eiki**, afariaren sustatzailea eta gomit txartelaren egilea. Juan Garzia

Denek, **eiki**, onartu behar dute Jainkorik gabe deus ez dela ez izaten ez ulertzen ahal. Piarres Xarriton

Hemen naiz, izaki ezdeus bat, **eiki**, baina ibilki, eta laster gelditzekotan. Piarres Aintziart

Gure bozak bildu nahiz, **eiki**. Piarres Xarriton

Bi entzuleria horien artean hauta dezagun Madrilgoa, gure helburua lortze aldera gaiztoena, **eiki**. Txema Ramirez de la Piscina

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bai eiki (4); **da eiki** (3); **dira eiki** (5); **du eiki** (3); **ez eiki** (6)

---

eite 1 *iz* itxura, antza.

Mundua mosaiko bat dela bururatu zaio: **eite**, kultura, pentsamendu eta kolore desberdinetako gizon-emakumeez osatutako erlategi bat. Anjel Lertxundi

Aurpegi zabala, gizakiaren itxura eta **eite** berekoa. Xabier Kintana

Horrelako gaiek, ez itxura ez **eite**, hutsune eta nahasmendua erakusten zutenek kaos bera ziruditen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Idatzi zituen, hala ere, Arresek beste **eite** bateko poemak, umore eta ironiaz ongi hornituak esate baterako. Berria - Kultura

Landareen artean badira hainbat mota eta **eitetakoak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Margolariaren lanak, hortaz, soilik irudiak, **eiteak**, ditu objektu; hau da, egiazkoa ez den zerbait. Askoren artean

Parerik gabeko gazte-lorearen **eite** eta tankera zoraldiak hain zartarazia. Juan Garzia

Ez du aitaren **eite** hor. Menane Oxandabaratz

Piramide baten **eitea** duen egitura batek erabiltzen du botere izugarri hori. Jon Alonso

Txit zuria zen, kareztatu berria zegoen eta ajez betetako atso zahar desitxuratu baten **eitea** zuen. Karlos Zabala

Beldurra Izpirituaren ezintasunetik heldu da, eta ez, beraz, Arrazoiaren ildotik; ez eta Gupida ere, honek, itxuraz, Moraltasunaren **eite** izanagatik. Piarres Xarriton

Burton-ek **eite** bereko beste artifizio batzuk ere aipatzen ditu. Juan Garzia

Ez dute zure antzik, zu guztien **eitea** izanik. Imanol Unzurrunzaga

Desiraren **eitea** amoltsutasunaren **eitearekin** nahasten da begietan. Jon Muñoz

-Jauna, mamu baten **eitea** ote dut? -lotsagabetu nintzen, pixka bat nardatua. Aingeru Epaltza

Orthezera agertu nintzen egunean ere antzeman zidala agure horrek bertze norbaiten **eitea**. Aingeru Epaltza

Bi emakume zeuden mahai baten inguruan jarririk, ama-alabak **eitez**, gizonetan aritzeko itxura handirik gabeak. Aingeru Epaltza

Berea bukatuta, nik ia-ia osorik utzitako menestrari jazarri baitzitzaion, asteak baraurik egin dituenaren **eitean**. Aingeru Epaltza

- **Eitean** ezagun dik zainetan dabilkion odola. Aingeru Epaltza

Charvet musuzapiak, *art moderne* **eiteko** hautsontziak. Mirentxu Larrañaga

Munduan bi substantzia edo **eite** bereizi behar dira: gogo-egoerak eta egoera fisikoak. Askoren artean

Bi besta horiek ez dutelarik elgarren artean deus ikustekorik, bat erlisioneari lotua, bestea estatu laikoari, badute biek halere elgarren **eite**, suaren besta baitira biak. Michel Oronoz

Euren espezie barruan ere ikusiko duzu edozeintzuk labore-ale ez direla elkarren artean euren **eiteetan** alderen bat ez edukitzeko bezain berdinak. Xabier Amuriza

Argi ikusten dugu ere horrela zergatik Izpiritua gauza baten ideiatik iragaten den berehala aitzineko gauza horrekin batere **eiterik** ez duen beste gauza baten ideiara. Piarres Xarriton

Agoteek jasaiten zutela legendunen **eiteko** bazterketa bat. Herria

Euskarari munduko hainbat hizkuntzekin **eitea** atzeman diote: Ipar Ameriketako indioen mintzoekin, Ipar Afrikako berberarekin, Finlandiako suomierarekin, tibeterarekin, japonierarekin, eta abar; bainan, ez da froga aski agertzen **eiteen** baieztatzeko. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eite militarreko jaka batez jantziriko gizon bibotedun bat. Jose Morales

Aurreneko aldiz, Melanie-ren arrasto bat antzematen dio: aho-ezpainen halako **eite** goxo bat. Oskar Arana

Nire **eitea** zuen, nire **eite** ikaragarria. Aingeru Epaltza

Eta egia da haren **eite** izugarria duela, gazteagoa izanagatik. Aingeru Epaltza

Begiak asmo gaiztokoak zituen, **eitea** bihozgabea. Karlos Zabala

Behin berriz, elkarren **eite** harrigarri horretaz inor ohartu bazen, ez zuen adierazi. Aingeru Epaltza

Harri handietako Euskadiko txapeldun ohiak **eite** zaharreko harri koadroa erabiliko du. Berria - Kirola

Gizonduago bezala ematen du, **eite** serioagoa erabiltzen duela iruditzen zait. Josu Landa

Beroki marroi luze bat zuen soinean eta belusezko kapela marroi higatu eta **eite** zehatzik gabekoa buruan. Mirentxu Larrañaga

Tinko oratu zion erosketa-poltsari bere alemaniar **eiteko** euskarri zilarrezkotik. Mirentxu Larrañaga

Garaiak ziren, sendoak, hezurtsuak, ilea gorri-antxa eta aurpegiak indiar **eitekoak**. Juan Garzia

Kuhnek agerian jartzen digu (zientziaren) ezagutzaren ekoizlearen **eite** enpirikoa eta soziala (zientzialarien elkartea). Askoren artean

Paperezko **eite** material soila duen gauza bat da liburua, lorontzi baten edo gelako pertsianaren pareko zertasuna duena. Anjel Lertxundi

Mutil gaztea, sorbalda eta bular alde zabalekoa, eta **eite** estukoa gainerakoan. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berriz ere **eite** istorio. Aingeru Epaltza

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estellerriko bat bazen haien artean, hau bezain nekazari **eitekoa**, masail gorri-gorriak zituena. Aingeru Epaltza

Hobe duzue, zuen onerako, ikusmena oihal batez estali, maitea bere arketipo-**eitean**, jainkosa-**eitean**, bizirik atxikitzeko. Oskar Arana

Gaztelu-**eiteko** gotorleku handi bat da. Mirentxu Larrañaga

Begiak baino gehiago aho-**eite** politak gustatzen zaizkit. Menane Oxandabaratz

Hura guztia oso serio eta mistizismo punttu batez hartzen banuen ere, bazuen jolas-**eite** bat. Juan Kruz Igerabide

Kruasanak, frantsesezko izena eman zien ilgora-**eite** horrekin. Jon Alonso

Oinak ere, kutxatila-**eiteko** txapin beltz haietan ehortziak. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, globo **eiteko** hauek ez diote elkarri heltzen, eta kolpetxo bat nahikoa da beherantz abiarazteko. Xabier Amuriza

Barka iezadazu, Wilmarth andereñoa, baina zer dela-eta izan behar duzu halako zaldi-**eitea**? Mirentxu Larrañaga

Alboan, haren izena, amaraun-**eiteko** letra larriz. Mirentxu Larrañaga

Emakume puska zen, mardula bezain motela, eta azal ilun beltzaran-**eitekoa** zuen erabat. Mirentxu Larrañaga

Poeta erromantiko **eitea** zuen Cesare edo Riccardo hura. Ramon Saizarbitoria

Graziana, motela eta hitsa, aitaren **eiteko**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten eitea (9); **baten eiterik** (3); **eite bat** (4); **eite dutenak** (3); **eite eta** (4); **eite zaharreko** (4); **eitea eman** (3); **eitea ematen** (3); **eitea eta** (3); **eitea hartu** (4); **eitea zuen** (4); **eiterik baduela** (3); **ere eite** (3); **eta eite** (6); **euskararen eite** (3); **haren eite** (4); **horren eite** (3)

---

eitedun *izon/izlag* eitea duena.

Gezurra al da, **eitedun** izaera oro edota izaera egingarri oro onik gorena den hargandik baizik ez dela, gorenki delako, hain zuzen? Imanol Unzurrunzaga

Batak zeru-lur berak zeru-lurren sortugaia deritzala uste du; besteak sorkari **eitedun**, bereiziak; besteak **eitedun** eta espiritual bat, zeru deritzona, bestea gorpuzduna, formagabea, lur deritzona. Imanol Unzurrunzaga

Alminarretako kareleko harrian Mekarantz seinalatzen duten seinaleak -gezi- **eitedunak**, hain segur- badirelako ideia xelebrea. Jon Alonso

---

eitegabe *adlag* eiterik gabe.

Oroitzapen lauso eta zehaztugabeak ziren, harri batek ur lasterraren hondoan dir-dir eta **eitegabe** dar-dar egiten duen modu berean. Eduardo Matauko

---

eivissar *izlag/izond* Eivissakoa, Eivissari dagokiiona; Eivissako biztanlea.

Herri katalanen adibidea ekarri nuen gogora: valentziar batzuek eurena hizkuntza berezia dela diote, eta gauza bera uste dute mallorcar, menorcar eta **eivissar** zenbaitek. Koldo Zuazo

---

ejakulazio ik **eiakulazio**.

---

ejekutibo ik **exekutibo**.

---

ejem *(orobat **ehem** g.er.) interj* eztarri leuntzea imitatzen duen onomatopeia, atentzioa diskrezioz deitzeko erabiltzen dena.

'Ejem, **ejem**!' egin zuen, eztarria garbituz bezala. Joseba Sarrionandia

-Ejem! -esan zuen Dumbledorek-. Iñaki Mendiguren

Ejem... zure galdera hori... Koldo Izagirre

- **Ejem**... orain, denok bapo berdinduta gaudenez gero, beste hitz batzuk bakarrik. Iñaki Mendiguren

Ordubietatik aurrera, haur gaixoa (**ejem**!) ikastera joan da berriro; tximino katarrinoak eta platirrinoak ziren gaur. Josu Zabaleta

Azkenean, ikusmina aserik, gezur-eztul batzuk egin zituen, **ejem**, **ejem**. Migel Angel Mintegi

---

ejenplu ik **exenplu**.

---

ejer ik **eder**.

---

ejerki ik **ederki**.

---

ejertzito *(ETCn **486** agerraldi; cf **armada** ETCn **51.724** agerraldi; orobat **ejerzito** ETCn **252** agerraldi)* **1** *iz* armada.

Biba Frente Popularra! Hil bedi **Ejertzitoa**! Joseba Sarrionandia

Hona etorri den **ejertzitoak**, ez digu beste biderik uzten. Txillardegi

Nazioaren egoerarekin kezkaturik zeuden, **ejerzitoko** beste ofizial eta azpiofizial asko bezala. Pako Aristi

Dantzariek lerroak osatzen dituzte eremu soildu batean, **ejertzitoak** balira bezala. Berria - Kultura

Bere **ejerzitoa** itsasertzera gidatu eta zera esan zuen gero, dena broma zela, arerioa asmatu egin zuelako. Bernardo Atxaga

Afrikako **ejertzitoa** gobernuaren kontra errebelatu zela entzuten zen philips irratiaren parteetan. Joseba Sarrionandia

Jakizu gure **ejertzitoaren** eta neronen babes osoa duzula une latzotan, ausarta baitzen galdu dugun soldadua, zure semea. Harkaitz Cano

Liburuaren hasieran, protagonista, Hazel Motes, etxera itzultzen da **ejertzitoan** ibili ondoren. Berria - Kultura

Gertatu dena da "zahar"etako bakan batzuk, ezer egin gabe egotez aspertuta, tiroka ekin diotela kaskamotz koadrila baten kontra, eta **ejerzito** oso bat izan, ezustean, hura. Juan Garzia

Ejertzitoa kanpora. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Betiko jarrera, aldiz, **Ejertzito** Erregularretara ez bolondres, baizik ordainduta eta lanbidea zen aldetik joatea izan da. Markos Zapiain

Berorren hotela Espainiako **ejerzito** nazionalarena da orain." Gerra zibilean **Ejertzito** Gorriaren aurka parte hartutakoak igandero bildu eta mezatara joaten ziren. Bernardo Atxaga

Ejertzitorik indartsuen eta hobekien prestatuek ere noizbehinka bake elkarrizketak izaten dituzte. Esteban Antxustegi

Espainiar **ejertzitoak** eginiko praktika militarrak izan genituen Euskal Herrian. Berria - Kultura

Egunkariek esaten zuten iparramerikar **ejertzitoak** urtean hogei mila gerra operazio egiten zituela Vietnamgo lurretan. Joseba Sarrionandia

3 irud/hed

Langabezia eta erreserba **ejertzitoa**. Iñaki Heras

Zenbaiten ustez [...] asetasunaren kultura dago langabeziaren kontrako benetako neurriak ezartzearen kontra (bestela esanda, erreserba **ejertzitoa** mantentzearen alde). Iñaki Heras

---

ejertzizio *(ETCn **5** agerraldi; cf **ariketa** ETCn **17.042** agerraldi; orobat **ejerzizio** ETCn **6** agerraldi)* **1** ariketa.

Ejerzizio asko komeni zaio. Gotzon Garate

Ohera joatea ez zen egunaren bukaera, beste **ejertzizio**-mota baten hasiera baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

2 *pl* gogo jardunak.

Begira bestela, Aita Kardaberazek berak San Inazioren **Ejerzizioetan** nola dioen: [...]. Pello Zabala

Huraxe izango zen **ejertzizio** haietako esperientziarik espiritualena. Xabier Mendiguren Elizegi

Esperientzia guztiz berri bat ere ezagutu genuen Eskolapioetako lehen ikasturte hartan: euskara txukunean gogo-jardunak deritzenak, **ejertzizio** espiritualak alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Apaizek harako plana adierazi zigutenetik gu ere egundoko planak hasi ginen egiten; izan ere, ikasle zaharragoei-edo entzunda, hotsa zabaldu zen gure artean, kristoren parrandak egiten zirela **ejertzizioetan**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ejerzito ik **ejertzito**.

---

ejerzizio ik **ejertzizio**.

---

ejiptiar ik **egiptoar**.

---

ekai *(orobat **ekei** g.er.)* **1** *iz* materia; materiala. ik **gai**.

Zure esku ahalguztidunak, **ekai** eragabetik mundua sortu zuenak, edozein bitarteko erabil zezakeen haiek zigortzeko. Elizen arteko biblia

Arbela, Galizian oinarrizko **ekaia**. Piarres Aintziart

Metala, zura edo oihala ditu bere **ekaiak**; pigmento naturalekin, akrilikoekin edo oliodunekin du margotzen. Herria

Errauste plantek **ekai** toxikoak isurtzen dituzte, eta ez dago konpondua azken hondakinen edo errautsen arazoa. Berria - Euskal Herria

Metala ez zela dirua egiteko **ekai** bakarra. Iñaki Mendiguren

Urak ere bere lana egiten du, eta hondakinekin nahasiz, lixibia izeneko **ekai** kutsagarria sortzen da. Berria - Euskal Herria

Auto eta hegazkinetan gero-ta usuago metalkien ordez **ekai** konpositoak baliatuak dira. Herria

Nire kargua arriskutan eman ditut kontrabandoko **ekaiak** garraiatuz. Elena Touyarou

Han eraikitzen zuen oihalezko etxola, eskumenean zeuzkan **ekaiekin**. Itxaro Borda

Ekaiak erraz pasatzen dira gehienetan kanpotik gorputz barrura. Irene Aldasoro

Paper zaharrak baino lehen buztinezko xaflak eta papirozko oihalak izan ziren idazteko **ekai** eta. J.M. Olaizola "Txiliku"

Politikaren ñabardurak eta nazio arteko komertzioa, **ekaien** gaineko tasa eta zergen ordainketa. zuhaitzak moztu eta egurra egin, adreiluak eta **ekaiak** ekarri udaberriko eraikitze-lanetarako. Elena Touyarou

Argazkiak pikorra ikusgarria, **ekaia** agerian zuten euskarritan eginez, "goma bikromato" famatu haietan, adibidez. Josu Zabaleta

Ekaiak kalitate txarrekoak zirelako. Jose Morales

Erori da haitza, uzten dauzku mozkinak eta **ekaiak**. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Edozein sailetako **ekai** eskasiak espekulazio gero eta handiagoa ukan zuen ondorio, eta nornahi egoeraz baliatzen zen, guti edo aski. Elena Touyarou

3 irud/hed

Amodioa isiltasun eta bakartasun zen eta elea **ekai** pottolo. Itxaro Borda

Pilotari on baten **ekaia** zen Jean Michel, bai luzean bai eta xare jokoan, lagunkina gainerat. Herria

Perpausaren azpian dauden muin-perpausak, perpausa eraikitzeko erabili diren **"ekai** edukidunak" direla pentsa daiteke. Itziar Laka

Arats goxo batzuen pasatzeko **ekai** guziak bilduak dira eta ongi etorri hoberena deneri egina. Herria

Baina ulertzen dut huts horren kausa: ez zen deus gertatzen barne haietan edo bederen nik kentzen nion errealitateari **ekaia**. Piarres Aintziart

Tesietan eta ehun irekiduretako ponentzietan ikerlariek aztertzeko **ekai** brutoa zen gure artzaina. Itxaro Borda

Ideala, beraz, gauza ororen jatorrizko irudia da (prototypon), eta gauzek osotara beren ahalgarritasunerako **ekaia** bertatik hartzen dute, kopia akasdunak (ectypa) diren aldetik. Ibon Uribarri

Neure ezagutza objektiboaren **ekai** naizenean. Askoren artean

Logika transzendentalak Estetika transzendentalak eskaintzen dion sentimenaren apriorizko anizkunkia dauka bere aurrean adimenaren adigai hutsei **ekaia** emateko, zeinak **ekairik** gabe edukirik gabekoak, eta beraz, erabat kaskalak liratekeen. Ibon Uribarri

Beraz, ez du ezer ezagutzen berenez, baizik eta ezagutzarako **ekaia**, hots, berari objektuaren bitartez eman behar zaion begiespena lotzen eta ordenatzen du. Berria - Harian

---

ekain **1** *iz* urtearen seigarren hila.

Ekaina zen, arratsaldea, eta Donostiara joan behar izan nuen presaka. Pako Aristi

Ekaina hurbildu ahala, egunak oskarbi eta sargoriak ziren. Maiatza joan da, **ekaina** buruz beheiti ari. Iñaki Mendiguren

Ekain honetan egin diren Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Berria - Mundua

2001eko **ekaina**. Berria - Mundua

1968ko maiatza ez baina **ekaina** izan zen, Txabi Etxebarrieta Tolosako Benta Haundin hil zutenekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan ere, 1937ko **ekain** hartako irudiak portukoekin nahastu zitzaizkidan. Edorta Jimenez

2000. urteko **ekainean**, 1999. urteko irailean bezala, prentsaurrekoa eman zuten solidarioek Estrasburgon, Europako Parlamentuan. Edurne Elizondo

2002ko **ekaina**: 200 hildako Tanzaniako Dodoma eskualdean, bi trenek elkar jota. Berria - Mundua

Eskuadroia, aldiz, **ekainean** sartu zen gerra ekintzetan lehenengoz, Filipinetan. Edorta Jimenez

Griselleren obra **ekain** aldera kenduko dute karteletik, arrakasta handia izan ondoren. Ramon Etxezarreta

Ekain inguruan Andresek ikasturteko eta Lizentziako azter ketak egin zituen, eta onik atera zen. Josu Zabaleta

Behin ere ez nuen ikusi **ekaina** hasierako goiz horretan baino axolagabeago edo alaiago. Oskar Arana

Ekaina bitartean EKEk datozen urteotarako ardatzak zehaztu nahi ditu Euskal Herria 2020 xedearen karietara. Berria - Kultura

Irailean hasi eta **ekaina** bitartean momentuko pilotaririk onenak hango torneotan ibili ohi dira. Berria - Kirola

Atzo Azpeitian (Gipuzkoa), Loiolako Basilikan aurkeztu zituzten **ekaina** eta iraila artean egingo dituzten erakustaldi eta kontzertuak. Berria - Euskal Herria

Bilkuran moldatuak izanen dira urritik eta **ekaina** arte emanak izanen diren kurtsoak. Herria

Joan den **ekaina** arte Nafarroako CCOO Euskadiko CCOOren parte zen. Berria - Ekonomia

Agenteak **ekaina** arte itxoiteko gomendatu dio, eta azkenean kasu egingo diola uste du berak, egonezina gainditzeko gauza bada, behintzat. Patxi Iturritegi

Bien bitartean, Europako Batasuneko txandakako presidente eta Irlandako lehen ministro Bertie Ahernek konstituzioa **ekaina** baino lehen sinatuko dela adierazi zuen herenegun. Berria - Mundua

Ekaina maiatza bezalakoa izanen ote da? Herria

Ekainak hamar ditu gaur. Edorta Jimenez

Ekainak 27 du gaur. Harkaitz Cano

ik beherago 4. Askoren artean

Ekainaren hasieran, Irala astebete pasea zen La Caledonia-n; igeltseroek bertan behera utzia zuten lana. Juan Garzia

Ekainaren hasierako arrats epela zen, hego haizea zebilen. Bernardo Atxaga

Ekainaren lehen asteko goiz epel eguzkitsu bat zen. Irene Aldasoro

Ekainaren hondarra zen, eta inongo ikastetxek ez ninduen hartu nahi irailean. Jesus Mari Mendizabal

Hori baino lehen, **ekainaren** azken aldera, Ernest Hemingway New Yorken da berriro, filmaren soinua grabatzeko lanetan.1944ko **ekainaren** lehen egunetan ginen. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Neure burua Gurutze Gorriaren parean autobusaren zain ikusten dudan apiril haizetsuak ala aitaren heriotzaren **ekain** itogarriak. Joseba Urteaga

Ondo letorke azken urteotako batenaz bestekoei erreparatzea, datu zerrendei begira, **ekain** normaltxu batek zer eman behar ligukeen, edo gutxienez, zer espero genezakeen jakiteko. Pello Zabala

Zorigaiztoko **ekain** hartan, 1937koan, itsasoa ihesbide bilakatu zen. Edorta Jimenez

3 (-en deklinabide atzizkiarekin, datetan)

Hori du erabaki Nafarroako Diputazioak Iruñen 1854ko **ekainaren** 17an, ni naizela lekuko: Yanguas, idazkaria. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Omar Khaiam 1048ko **ekainaren** 18an jaio zen, Korasan, Egunsentiaren Herrialdeko pertsiar herrixka batean. Jon Muñoz

Urkaturik hil zen, 1948ko **ekainaren** 2an. Jose Morales

Sei egun geroago, 1660ko **ekainaren** 9an. Joan Mari Irigoien

"Astelehena da, **ekainaren** bosta. Oskar Arana

Ekainaren lehena, ongi zaizu? Janbattitt Dirassar

Ekainaren 6a: egun garrantzitsua nire bizieran. Txillardegi

Maiatzaren 1etik **ekainaren** 1era. Josu Zabaleta

Ekainaren 23 an, aratsaldeko 6 etatik landa, estreinaldia artistekin. **Ekainaren** 27an astelehenarekin, Zelaiko pestak, 9 orenetan birla zoingehiagoka. Herria

Urte bereko **ekainaren** 7an, Itoizko urtegiak ur azpian hartuko zuen ingurua bisitatzera joan zen Urralburu. Edurne Elizondo

Marie Rogêt 18... ko **ekainaren** hogeita biko igande goizeko bederatziak aldean atera zen bere amaren etxetik. Koro Navarro

Ekainaren 14ko Itun bitxi eta berri-berri hartan, garbi agertzen zen kezka nagusi hori: [...]. Txillardegi

-Ingalaterrara joan ziren maiatzaren hogeian eta ez dira **ekainaren** hamabostera arte itzuliko. Oskar Arana

Serge Julyk 2006ko **ekainaren** 30ean eman zuen agurra, *Libération*-en bertan: "Pouquoi je quitte 'Libération'". Iñigo Aranbarri

Ekainaren 16an eta 17an daude datatuak gertaera honen inguruko albiste guztiak. Iñigo Aranbarri

4 (-k deklinabide atzizkiarekin, datetan)

Igandea, 1943ko **ekainak** 13. Josu Zabaleta

Ekainak 11-Kanpamendu nagusia. Xabier Montoia

- **Ekainak** hogeita zazpi, asteartea. **Ekainak** 20. Hasier Etxeberria

Juan Martinez Irujo Eibarko San Juanetan, **ekainak** 24an hain zuzen, itzuliko da kantxetara. Berria - Kirola

Eindhovengo taldekako erlojupekoa da bestea (**ekainak** 18), eta horregatik, holandarrek oso jarrera erasokorra izaten dute. Berria - Kirola

5 (-k deklinabide atzizkiarekin, datetan, aposizioan)

Larunbatean zortzi, **ekainak** 9, manifestaldi bat eginen da Parisen euskaldun, bretoin eta korsikar presoen sustenguz. Herria

Hurrengo egunean, **ekainak** 24, bete egin zitzaigun desira, jeinu zintzo bat edo Juan Bataiatzailea bera gutaz arduratu izan balitz bezala. Bernardo Atxaga

Ortzegun hau, **ekainak** 19, greba eguna izanen dela erabakia dute. Gaur, **ekainak** 29, San Pedro eguna, bost urte dira Itsasondoko nire aitona Patxi Elizegi hil zela. Herria

Ospakizuna egin zen arratsaldean -igandea, **ekainak** hamaika-, Lucy haurtzain batekin utzi eta Tomekin joan nintzen parkera, oinez. Oskar Arana

Hori da eztabadatuko helduden asteartean, **ekainak** 26, goizeko 9-etarik harat, Hondarribiako udaletxean. Herria

Ortziralean eta larunbatean, **ekainak** 22 eta 23, Baionako fakultatean. Herria

6 (hitz elkartuetan)

Aurki zabaldu zen eguna, eta **ekain** hasierako egunsenti urretsu horietako bat nagusitu zen. Anjel Lertxundi

2006ko **ekain** hasieran, Baionako arrantzale bat eraman zuen itsasoak. Iñigo Aranbarri

Seguran jokatu da **ekain** erditan sega xapelketa, 25 segalariren artean. Herria

Ekain erdialdean hasten dugu denboraldi-aurrera, Alpeetan. Berria - Kirola

1540ko **ekain** hondarrean heltzen da Frantzes Lisboara, baina ez dio berak jakinarazten bere askaziari. Piarres Xarriton

Ekain bukaeran jakingo da txapelduna, Bartzelonaren lekukoa hartuko duena. Berria - Kirola

Ekain amaierako egun erabakitsu hartan. Jon Arretxe

Isiltasun hotza zen, eguerdi aldeko **ekain**-eguzkiak gogorki jo arren. Itxaro Borda

7 (hitz elkartuetan elkarketa kopulatiboetan)

Maiatza infernu, **ekain**-uztailak zeru. Pello Zabala

Berez, garagarraren ilargialdia zen, hitz honekin ematen zena, eta noski, **ekain**-uztailen artean dabilkeen ilargi hori seinalatzen zuten antzina. Pello Zabala

Esku arteko Iruzkinak 1766ko **ekain**-uztailean idatzi zuen eta urte bereko irailean agertu zen. Juan Martin Elexpuru

Horrek **ekain**-uztail-abuztuetan irauten du. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apirila eta ekaina (3); **aurtengo ekaina** (8); **aurtengo ekaina arte** (4); **baina ekaina** (3); **datorren ekaina** (3); **den ekaina** (3); **egitaraua ekainak** (3); **ekain aldean** (5); **ekain hasieran** (4); **ekain honen** (4); **ekain hortan** (5); **ekain hunen** (3); **ekain ondar** (3); **ekain ondarrean** (3); **ekain undarrean** (3); **ekaina aldera** (3); **ekaina amaiera** (4); **ekaina arte** (47); **ekaina arte sinatu** (5); **ekaina baino** (14); **ekaina baino lehen** (10); **ekaina baino lehenago** (4); **ekaina bitarte** (6); **ekaina bitartean** (22); **ekaina elkarteak** (3); **ekaina eta** (11); **ekaina eta iraila** (3); **ekaina eta uztaila** (4); **ekaina zen** (3); **eta ekaina** (16); **eta ekaina bitartean** (5); **helduden ekaina** (4); **helduden ekaina arte** (4); **maiatz ekain** (3); **maiatza ekaina** (3); **maiatza eta ekaina** (3); **urteko ekaina** (5); **z egitaraua ekainak** (3)

antolatzen du ekainaren (7); **ariko dira ekainaren** (3); **aurten ekainaren** (4); **aurtengo ekainaren** (4); **bai eta ekainaren** (3); **baina ekainaren** (6); **baita ekainaren** (5); **bat ekainaren** (5); **beila ekainaren** (5); **bereko ekainaren** (3); **bestak ekainaren** (5); **bilbon ekainaren** (3); **da ekainaren** (60); **dago ekainaren** (3); **datorren ekainaren** (46); **dela ekainaren** (3); **den ekainaren** (69); **den igandean ekainaren** (3); **den urteko ekainaren** (4); **dio ekainaren** (5); **dira ekainaren** (28); **ditu ekainaren** (8); **dituzte ekainaren** (8); **donostia ekainaren** (5); **du ekainaren** (22); **dute ekainaren** (19); **dutela ekainaren** (4); **egin zuten ekainaren** (3); **eginen da ekainaren** (5); **egitaraua ekainaren** (3); **eguna ekainaren** (3)

ekainaren amaiera (6); **ekainaren amaieran** (9); **ekainaren azken** (5); **ekainaren bian** (3); **ekainaren bukaera** (4); **ekainaren bukaeran** (9); **ekainaren erdialdean** (5); **ekainaren hasierako** (4); **ekainaren hasieran** (23); **ekainaren hasieran izango** (3); **ekainaren hogeita** (8); **ekainaren hondarrean** (3); **ekainaren lehen** (11); **ekainaren lehen egunetan** (3); **ekainaren lehena** (5); **ekainaren lehenean** (13); **ekainaren leheneko** (3); **ekainaren lehenengo** (3)

eko ekainaren (7); **erakusketa ekainaren** (4); **ere ekainaren** (3); **erredakzioa ekainaren** (4); **eta datorren ekainaren** (3); **eta ekainaren** (89); **etzitik ekainaren** (3); **ezkontza**

ekainaren (7); **finala ekainaren** (14); **gaurtik ekainaren** (8); **gobernuak ekainaren** (3); **hasi eta ekainaren** (11); **hauk ekainaren** (3); **heldu den ekainaren** (23); **helduden ekainaren** (15); **heriotze ekainaren** (3); **herriko bestak ekainaren** (4); **hiltze ekainaren** (3); **hori ekainaren** (6); **horiek ekainaren** (3); **huntan ekainaren** (5); **iazko ekainaren** (14); **igandean ekainaren** (7); **iragan ekainaren** (35); **iraganen da ekainaren** (9); **izanen da ekainaren** (11); **izanen dira ekainaren** (4); **izango da ekainaren** (6); **joan den ekainaren** (41); **joan zen ekainaren** (5); **joanden ekainaren** (6); **kermeza ekainaren** (4); **ko ekainaren** (12); **mungian ekainaren** (4); **nagusiak ekainaren** (5); **pasa den ekainaren** (3); **pesta ekainaren** (3); **pestak ekainaren** (4); **sortze ekainaren** (6); **tik ekainaren** (3); **urte bereko ekainaren** (3); **urteko ekainaren** (34); **zen ekainaren** (9); **zinema ekainaren** (10); **ziren ekainaren** (4); **zuen ekainaren** (13); **zuten ekainaren** (5)

aurtengo ekainean (4); **bat ekainean** (3); **bereko ekainean** (5); **da ekainean** (14); **datorren ekainean** (9); **den ekainean** (35); **den urteko ekainean** (3); **dira ekainean** (5); **ditu ekainean** (4); **du ekainean** (13); **dute ekainean** (4); **edo ekainean** (6); **ekainaz geroztik** (14)

ekainean abiatu (6); **ekainean amaituko** (11); **ekainean amaituko da** (3); **ekainean amaituko zaio** (3); **ekainean amaitzen** (28); **ekainean amaitzen zaio** (16); **ekainean aske** (3); **ekainean atxilotu** (4); **ekainean atxilotu zuten** (3); **ekainean aurkeztu** (5); **ekainean aurkeztu zuten** (3); **ekainean baino** (10); **ekainean bertan** (5); **ekainean bukatzen** (3); **ekainean edo** (4); **ekainean egin** (9); **ekainean egin ziren** (4); **ekainean egindako** (5); **ekainean eginen** (3); **ekainean eginen diren** (3); **ekainean egingo** (16); **ekainean egingo diren** (6); **ekainean eginiko** (5); **ekainean eta** (25); **ekainean eta uztailean** (14); **ekainean europako** (6); **ekainean europako legebiltzarrerako** (3); **ekainean gertatu** (4); **ekainean gertatu zen** (3); **ekainean hasi** (6); **ekainean hasiko** (8); **ekainean hasiko dira** (3); **ekainean hauteskundeak** (3); **ekainean hil** (4); **ekainean hil zen** (4); **ekainean izan** (7); **ekainean izan zen** (6); **ekainean izandako** (4); **ekainean izango** (6); **ekainean izango da** (5); **ekainean jakingo** (5); **ekainean jakingo da** (3); **ekainean jarriko** (4); **ekainean jarriko dute** (4); **ekainean kontratua** (5); **ekainean kontratua amaitzen** (4); **ekainean lehen** (4); **ekainean onartu** (9); **ekainean onartu zuen** (7); **ekainean onartuko** (3); **ekainean onartutako** (3); **ekainean portugalen** (3); **ekainean utzi** (3)

eta ekainean (41); **eta ekainean amaituko** (4); **heldu den ekainean** (7); **helduden ekainean** (11); **iazko ekainean** (40); **iragan ekainean** (24); **joan den ekainean** (27); **joan zen ekainean** (8); **joanden ekainean** (10); **ko ekainean** (5); **kontratua ekainean** (5); **maiatz eta ekainean** (3); **maiatzean edo ekainean** (5); **maiatzean eta ekainean** (9); **urte bereko ekainean** (5); **urteko ekainean** (33); **zen ekainean** (14); **ziren ekainean** (6); **ziurrenik ekainean** (3); **zuen ekainean** (15); **zuten ekainean** (4)

apiriletik ekainera (9); **da ekaineko** (5); **datorren ekaineko** (4); **den ekaineko** (6); **dira ekaineko** (4); **ekaineko azterketa** (3); **ekaineko bozak** (4); **ekaineko bozetan** (4); **ekaineko egun** (5); **ekaineko europako** (7); **ekaineko europako legebiltzarrerako** (3); **ekaineko hauteskundeen** (4); **ekaineko lehen** (3); **ekainera arte** (22); **ekainera arteko** (4); **ekainera bitarte** (3); **ekainera bitartean** (14); **ekainerako espero** (3); **ekainetik aurrera** (14); **eta ekaineko** (9); **eta ekainerako** (6); **iazko ekaineko** (5); **iazko ekainetik** (8); **joan den ekaineko** (3); **maiatzetik ekainera** (4); **upelaren ekaineko** (3); **urtarriletik ekainera** (6); **urtarriletik ekainera bitartean** (4); **urteko ekainetik** (3)

---

ekaitu, ekai(tu), ekaitzen da/du *ad* ekai bihurtu.

Oren baten buruan, esnea **ekaitua** zen eta pasta hartan zilarrezko koilara zutik egon zitekeen. Itxaro Borda

---

ekaitz **1** *iz* atmosferaren nahasmendu bortitza, haize gogorrez, eta gehienetan euriz edo elurrez eta trumoi-tximistez gertatzen dena.

Ekaitz, euri-jasa eta txingor artean. Elizen arteko biblia

Datozen urteetan **ekaitzak**, lehorteak eta bestelako muturreko fenomenoak asko areagotuko direla esan zuen atzo WMOko Sommeriak. Berria - Gaiak

Zuek ez zarete hurbildu, israeldarrak bezala, uki daitekeen mendi batera, su kiskalgarria, laino itxia, ilunpea eta **ekaitza** zeuden mendira. Elizen arteko biblia

Ez zen ohartu **ekaitza** hasi zuela, ez zen ohartu zerua belztu egin zela bat-batean, ez zen ohartu euria, euri jasa, euri basa, euri zakarra, erortzen hasia zela. Felipe Juaristi

Ekaitza altxako ez ote zen beldurrez. Koro Navarro

Ekaitza sortu zen eta uhinek itsasontzia ia azpian hartua zuten; **ekaitzak** oso gogor jotzen zuen eta marinelak beldur ziren hondora joango ote ziren. Askoren artean

Bere amorru osoaz jotzen zuen oraindik **ekaitzak** hiribide zaharra gurutzatu nuenean. Koro Navarro

Eguneko azken orduetan **ekaitza** lehertzeko arriskua, batik bat Pirinio aldean. Joseba Sarrionandia

Hara, **ekaitza** bezala lehertu da Jaunaren haserrea.

Era guztietako **ekaitzak** eragin zituen, eta hodei beltzek estali zuten hala itsasoa nola lurra. Juan Kruz Igerabide

Ekaitza zekarren Oiz mendi urrunaren gainetik. Alberto Ladron Arana

Egunak **ekaitza** zekarren, baina ez zitzaion oraindik igartzen. Matías Múgica

Hodei beltz sarriek **ekaitza** zekarten. Joanes Urkixo

Ekaitza haizekirri bihurtu zuen eta olatuen orroa isildu. Elizen arteko biblia

Wenlingeko Meteorologia zerbitzuak adierazi zuen atzo haizearen indarrak nabarmen egin zuela behera, eta tifoia udako **ekaitz** bihurtzen ari dela mendebalderantz joan ahala. Berria - Mundua

Lope de Iraurgiren mutil bat etorri zaie esatera **ekaitzak** jo baino lehen egon behar zutela itsasontzian. Felipe Juaristi

Kostaldean **ekaitzak** jo dezake, eta litekeena da kazkabarra egitea. Berria - Euskal Herria

Biharamunean, oraindik **ekaitzak** gogor jotzen baitzuen, untzia arintzen hasi ziren. Elizen arteko biblia

Ekaitzak mendean hartu gintueneko eguna ereiaroko hemeretzia izan zen. Edorta Jimenez

Baina zuk, zeure gudaroste eta herri aliatu askorekin, **ekaitzak** bezala egingo diozu eraso, lurraldea estaltzen duen hodei beltza bezala sartuko zara han. Elizen arteko biblia

Ekaitza ziztuan zetorkigun, eta hura gainean izanez gero zer espero genezakeen sumatzen hasiak ginen. Edorta Jimenez

Aterpean ere **ekaitza** sartzen baitzen zirimolan. Filipe Bidart

Ekaitzak oholak askatu zituen, masta erabat hautsi zen. Juan Kruz Igerabide

Jesusek **ekaitza** baretu.

Hala aritu zen denbora luzean, **ekaitza** desegin zen arte. Joan Mari Irigoien

Ekaitzak ere, bortitzak oso, euriz ez, harea ibiltariz eta haizez osatzen dira han. Pello Zabala

Indargabearentzat babesleku izan zara, behartsuarentzat larrialdian babesleku: **ekaitzean** aterpe, sargorian gerizpe. Elizen arteko biblia

Uholdeen edo **ekaitzen** beldur izaten gara, baina ez gaude beroaren kontra neurriak hartzera ohituta. Berria - Harian

Ekaitzaren ondoko barealdiak lagundurik. Joan Mari Irigoien

Biblian sekulako iruditan bildu izan dira **ekaitzaren** esperientziak utzitakoak. Pello Zabala

Ekaitzen uhinak ez ezik erradiazio gerriko berri bat ere aurkitu du Saturnoren inguruan. Berria - Gaiak

Orduantxe gertatu baitzen Ejiptoko eta Siriako uzta alea zekarten itsasontziak elkarren aurkako haizeek jota, ez hara ez honara, **ekaizpean** gelditu izana, Bizantzioko jendaila goseminduaren haserre eta etsipena sortuz. Patziku Perurena

Hutsegite bat izan zuen, edonork bezala, uzta bilketako gau batez, azao ebakien artean, **ekaitzezko** zeru baten pean. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lurrikara izan zen lehenik, Mitch urakana ondoren eta Stan **ekaitz** tropikala orain. Berria - Harian

Zirimola bortitz hauek dena inarros dezaten, **ekaitz** aldakorrek asalda dezaten uzten du, berak lerrarazten ditu bere suak abio segurrean. Baina **ekaitz** zakarra sortu zen eta itsasgizonek egun luzeetan jardun behar izan zuten arraunean gogor. Xabier Amuriza

Ontzi batean beste askorekin itsasoz zihoala, ontzia, **ekaitz** bortitzak bultzatuta, mendi batera hurbilduz zihoan lehertzera. Askoren artean

Anconako itsasgizon batzuk, **ekaitz** arriskutsu baten erasopean, hondoratzeko zorian aurkitzen ziren. Askoren artean

Saturnon **ekaitz** handiak eta haize gogorrak izaten dira. Berria - Gaiak

Andaluzia eta Valentzia aldeko kostan eurijasa eta **ekaitz** izugarriak. Pello Zabala

Egun sargori baten ondoren, arbel koloreko **ekaitz** eskerga batek ezkutatua zuen zerua. Juan Garzia

Horrelako kosken artean etorri ohi dira **ekaitz** trumoitsuak ere. Pello Zabala

1581ean, **ekaitz** beldurgarri batean, haize eta harri, San Felix elizako dorrea jausi zen Gironan kalera. Pello Zabala

Lohi-babes batek bidaztiak gordetzen ditu bideko lokatzetatik, eta larruzko estalki mardul batek, jaitsi eta erabat itxi daitekeenak, bidaiatzea samurtu eta bigundu egiten du uda parteko bero sapetan eta **ekaitz** gaiztoetan. Karlos Zabala

Eguzkiaren izpiak, **ekaitz** opakoan zehar, hodeietatik harako ihintzaren kontra dizdizten direnean, orduan hodei beltzetatik ostadarraren koloreak agertzen dira. Xabier Amuriza

Egundoko **ekaitza** sortu zen pare-parean, tximist eta oinaztu, trumoi eta erauntsi, goiak behera lehertzeraino. Pello Zabala

Harria bezain gogor, sugea bezain sotil, **ekaitza** bezain gaizto. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ekaitz -egunak, berriz, Bilbon 3. Pello Zabala

Zelaien gainean bueltaka, **ekaitz** -gau bateko itzalen antzera, bost txori ikusi zituen hegan, putreak bezain higuingarriak, arranoak baino handiagoak, heriotza bezain krudelak. Agustin Otsoa

Udaberri eta uda, **ekaitz** sasoiak dira sarritan. Pello Zabala

1898an, **ekaitz** oldar ikusgarria Madrilen: farol, hesi, zuhaitz, teilatu-sabai... harrapatu zuen guztia txikitu zuen: zauritu asko, jende artean. Pello Zabala

Udaberrian sartzean-eta **ekaitz** -giroa izaten zenez, asko baitzegoen jokoan soroetan eta uzta laboreetan. Pello Zabala

Uholde-euriak etorriko dira, harria botako du eta **ekaitz** -haizeak joko. Elizen arteko biblia

Ekaitz -hodei beltzaren errape-azpi ilun arre horretan. Pello Zabala

Ekaitz zaparradaren lehenengo tantak astunak eta bakanduak izaten dira. Josu Zabaleta

Bat-batean deabrua etorri zitzaion ikaragarrizko **ekaitz** -burrunba eta zarata artean. Askoren artean

Kanpoan **ekaitz** erauntsia ari zuen eta haizearen indarrak lanak ematen zizkion zutik egoteko. Anton Garikano

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ontziak Eolia uharterantz zihoazen atzera, haize- **ekaitz** ikaragarri batek bultzaturik. Juan Kruz Igerabide

Ez al litzateke polita izango halako ostots- **ekaitz** bat izango bagenu? Lopez de Arana

Gauerdian haizea hegosartaldetik izugarrizko indarrarekin hasiko da jotzen, eta elur **ekaitza** ekarriko du. Joseba Sarrionandia

Elur eta izotz **ekaitzari** aurre egiteko Babes Zibileko Plana indar barik utzi du Eusko Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Biharamunean, ordea, gauean hasitako elurra bisuts- **ekaitz** bihurtu zen. Iñaki Mendiguren

Menditik bertatik hodei bat sortu ohi zen, inguruan kazkabar- **ekaitz** bortitza leherraraziz. Askoren artean

Hauts- **ekaitzek** gaitzak zabaltzen laguntzen dute. Berria - Gaiak

Hondar **ekaitz** larriak gertatu dira azkenaldian Txinan. Berria - Gaiak

Marten ura eguzki **ekaitzen** ondorioz desagertu zela uste dute adituek. Berria - Gaiak

5 irud/hed

Liskar hotsa iristen zen hirugarren solairutik; marmarren ondoren muturtzeak, muturtzeen ondoren **ekaitzak** , **ekaitzen** ondoren malkoak. Oskar Arana

Munduko herrialdeek etorkizuneko **ekaitz** ekonomikoei eta interes tasen igoerari aurre hartzeko erreformak egiteko baliatu behar dute koiuntura ekonomiko ona. Berria - Ekonomia

Hans Eichel Finantza ministroa **ekaitz** politikoaren erdian dago. Berria - Ekonomia

Zigarro batetik zetorren kezko **ekaitz** bero zorabiagarri batek mugiarazten zituen arasa eta komoda. Koro Navarro

Danelek eta Adak nerabezaroan bizi izandako **ekaitz** erromantikoaren trumoi iraganen oihartzun gero eta galduagoak. Anjel Lertxundi

Ekaitz beldurgarri batek ariman eztanda egiten duenean, gizakiak egin beharko luke jendeak euri- eta kazkabar-erasoetan egiten duen gauza bera: aterpean babestu **ekaitza** igaro arte. Joan Mari Lekuona

Zuhurtasunez zaindu behar da anaia gorputza, melankoliaren **ekaitza** altxa ez dezan. Askoren artean

Emozio **ekaitz** baten mendean aurkitzen da bakoitza, zein bere moduan. Joxan Elosegi

Ene lagunok, gizakia horrelako maitasun- **ekaitzetan** aurkitzen denean, ahantz bitza bere bekatuak, ez bedi umiltasun-ekintzez arduratu, ez eta beste gauzez ere. Joan Mari Lekuona

Birao **ekaitz** bat lehertu zen zeruak eta lurrak sortu zituen Jainko ezgauzaren aurka. aipagarria da ezen finantza-liberalizazioko prozesutik aparte geratu diren ekonomiek, Txinakoa eta Taiwangoa bezala, ez dutela ia sumatu ere egin eskualde hau astindu duen finantza- **ekaitza** , eta bizi-bizi jarraitu dutela hazten. Pello Lizarralde

Debaluazio konpetitiboen posibilitatea baztertzen da eta **ekaitz** finantzarioak ere erabat uxatzen dira. Iñaki Heras

Baina urte askoan biziko gara **ekaizpean** . Berria - Euskal Herria

6 ***ekaitz txori*** itsas hegazti txikia, hego-luzea eta igeri-oinduna, mokoa kakoan duena *(Hydrobates pelagicus* etab.)

Ekaitz txoria Europan bizi den itsas hegaztirik txikiena da, eta 15 bat zentimetro hazten da. Berria - Euskal Herria

Ekaitz txoriak , berriz, planktona jaten du, eta kate trofikoaren oinarriaren osasunaren berri ematen du horrexegatik. Berria - Euskal Herria

Belatz handiak eta **ekaitz txoriak** bioadierazleak dira. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ekaitz (5); **da ekaitz** (3); **den ekaitz** (3); **dira ekaitz** (3); **dira winnie ekaitz** (3); **du ekaitz** (4); **edo ekaitz** (3); **ekaitz bat** (9); **ekaitz batean** (6); **ekaitz batek** (12); **ekaitz batek harrapatu** (3); **ekaitz baten** (15); **ekaitz baten erdian** (4); **ekaitz beldurgarri** (4); **ekaitz beldurgarri batek** (3); **ekaitz betean** (3); **ekaitz bolada** (3); **ekaitz bortitz** (5); **ekaitz bortitza** (6); **ekaitz egunetan** (4); **ekaitz elordui** (3); **ekaitz eta** (24); **ekaitz gau** (5); **ekaitz giroa** (5); **ekaitz giroan** (4); **ekaitz gogor** (6); **ekaitz gogorra** (5); **ekaitz handi** (9); **ekaitz handi bat** (3); **ekaitz handiak** (4); **ekaitz hura** (4); **ekaitz ikaragarri** (3); **ekaitz izugarria** (3); **ekaitz tropikal** (5); **ekaitz tropikala** (4); **ekaitz tropikalak** (13); **ekaitz tropikalaren** (6); **ekaitz tropikalaren eraginez** (3); **ekaitz txoriak** (4); **elur ekaitz** (11); **elur ekaitz batek** (3); **eta ekaitz** (54); **eta ekaitz eta** (3); **haize ekaitz** (4); **hauts ekaitz** (3); **itsasoko ekaitz** (3); **jeanne ekaitz** (3); **mila ekaitz** (4); **stan ekaitz** (3); **winnie ekaitz** (4); **winnie ekaitz tropikalaren** (3); **zuen ekaitz** (3)

baina ekaitza (4); **den ekaitza** (3); **desagertzen zen ekaitza** (3); **egundoko ekaitza** (5); **eguneko ekaitza** (3); **ekaitza ari** (4); **ekaitza baretu** (9); **ekaitza bezala** (6); **ekaitza dator** (3); **ekaitza dator paradisutik** (3); **ekaitza edo** (5); **ekaitza edo beste** (3); **ekaitza ere** (3); **ekaitza eta** (8); **ekaitza ez** (4); **ekaitza hasi** (5); **ekaitza igaro** (4); **ekaitza igaro arte** (3); **ekaitza izan** (8); **ekaitza izan zen** (5); **ekaitza lehertu** (8); **ekaitza operazioa** (3); **ekaitza oso** (3); **ekaitza pasa** (3); **ekaitza sortu** (4); **ekaitza sortu zen** (3); **ekaitza sortzen** (3); **ekaitza zekarren** (3); **ekaitza zetorrela** (3); **elur ekaitza** (12); **eta ekaitza** (17); **genuen ekaitza** (3); **jesusek ekaitza** (3); **jesusek ekaitza baretu** (3); **kanpoan ekaitza** (3); **sekulako ekaitza** (3); **zela ekaitza** (3); **zen ekaitza** (11); **zen ekaitza edo** (3)

ekaitzak eragindako (4); **ekaitzak ere** (3); **ekaitzak eta** (9); **ekaitzak ez** (4); **ekaitzak gogor** (5); **ekaitzak gogor jo** (4); **ekaitzak harrapatu** (3); **ekaitzak iraun** (3); **ekaitzak jo** (6); **ekaitzak jotzen** (4); **ekaitzak jotzen duenean** (3); **ekaitzak sortutako** (3); **elur ekaitzak** (13); **eta ekaitzak** (9); **gaueko ekaitzak** (3); **hondar ekaitzak** (4); **zituen ekaitzak** (4); **zuen ekaitzak** (4)

ekaitzaren aurreko (3); **ekaitzaren aurretik** (3); **ekaitzaren beldurrak** (3); **ekaitzaren eraginez** (4); **ekaitzaren erdian** (17); **ekaitzaren erditik** (3); **ekaitzaren erditik erantzun** (3); **ekaitzaren eta** (4); **ekaitzaren ondoren** (5); **ekaitzaren ondorioak** (5); **ekaitzaren ondorioz** (14); **ekaitzaren ostean** (10); **ekaitzari aurre** (6); **ekaitzari aurre egiteko** (5); **elur ekaitzaren** (10); **elur ekaitzaren ondorioz** (4); **elur ekaitzarengatik** (3); **eta ekaitzaren** (5); **izan zituzten ekaitzaren** (3); **zen ekaitzaren** (6); **zituzten ekaitzaren** (4); **zuen ekaitzaren** (3)

ekaitzek ez (3); **ekaitzen bat** (5); **ekaitzen ondorioz** (7); **ekaitzetik babesteko** (4); **eta ekaitzen** (6); **ez ekaitzik** (3); **hondar ekaitzen** (3)

---

ekaitzaldi *(orobat **ekaitz aldi** g.er.)* **1** *iz* ekaitza dagoen aldia.

Itsasoak pentsatzerik balu, zorionaren ideia eta itxaropena jaioko lirateke haren baitan **ekaitzaldi** bakoitzean. Felipe Juaristi

Zuzengabeen aberastasunak errekastoa bezala lehortuko dira, **ekaitzaldiko** trumoi-hots handia bezala pasatuko. Elizen arteko biblia

Aitona isildu denerako, atertu egin du **ekaitzaldiak** . Patziku Perurena

Hura ere gehiago izutzen zuen geldialdiak **ekaitzaldiak** baino. Felipe Juaristi

1931n, **ekaitzaldi** bortitza Kantabria aldean. Pello Zabala

2 irud/hed

Heriotza hurbiltzean, **ekaitzaldi** oro baretu eta tentaldi oro gaindituta, lasaitasun eta bake miragarria izango du. Askoren artean

Erromesene inguruetako lurretan goratu zituzten Azpilgo lehen etxe zatar itsusiak, eta, denborarekin, nire etxe ondora heldu da zementuaren **ekaitzaldia** . Joan Mari

Irigoien

---

ekaitztsu ik **ekaiztsu**.

---

ekaizte *iz* ekaitza, ekaitzaldia.

Ez suteak, ez hormateak ez **ekaizteak** hondatuko du. Patziku Perurena

Zeinen gaizki eta zenbateko lanturuak txiliatzen zituen zakur gajoak, tximista eta trumoi, **ekaizteak** jotzen zuenean. Pello Zabala

Teruel aldean, Valverde herriko bailaran, **ekaiztea** hasi bazen hasi, 24 ordutan, 400 litro bota zituen. Pello Zabala

1983an, Gipuzkoa eta Bizkaia hondatu zituen **ekaizte** makurra; 3 egun iraun zuen, kalte neurtu ezinezkoak, hildakoak eta guzti. Pello Zabala

Bi aste iraun zuen **ekaizte** latz hark; 2 hildako eta desagertu bat ondorioz. Pello Zabala

1543an, **ekaizte** handi latza penintsula ia guztian. Pello Zabala

Negu beltzeko **ekaizte** zakarra. Patziku Perurena

1649an, **ekaizte** izugarriak Mallorcan eta Kartagenan, egun berean, 24an. Pello Zabala

Ekaizte ikaragarri hartatik salbo. Patziku Perurena

Haize- **ekaizteen** inguruko informazioa ematen zioten elkarri gameluzainek, eta suaren ondoan esertzen ziren, basamortuko istorioak kontatuz. Xabier Aranburu

---

ekaizti *izond* ekaiztsua.

Martxoa **ekaizti** eta hegozale joanez gero, txarrena apirilean ekarriko zuen seinale. Pello Zabala

---

ekaiztsu *(orobat **ekaitztsu**)* **1** *izond* ekaitzezkoa.

Larunbat arratsalde **ekaiztsu** batean. Patxi Iturritegi

Atsegin dut gau **ekaiztsuan** hiltzea. Aitor Arana

Nola salbatu zion bizitza Ural mendietako gau **ekaiztsu** ikaragarri hartan, berea arriskuan jarriz! Karlos Zabala

Zeru **ekaiztsuan** beren bidea egin eta posta entregatzea lortzen zuten hontz bakanak. Iñaki Mendiguren

Armen aldarriaren eta urduritasunaren erdian, ahotsek orro egin zuten, marea **ekaiztsu** baten gisa. Agustin Otsoa

Nik biziki eskertzen nion ahalegina, eta, sexua egiten genuenean batez ere, desesperatu batek bezala estutzen eta besarkatzen nuen, gorputz hura itsaso **ekaiztsuan** aurkitutako ohola balitz bezala, hain nuen hezurmuinetaraino sartua bakardadea. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Baina inoiz ez zenuen txintik ere atera gure harreman **ekaiztsuan**, badakizu niretzat erabakia ez zela erraza izan. Ramon Etxezarreta

Demokrazia **ekaiztsuaren** grina guztiak suspertu zituen inperio haziegi bateko biztanleria gogogabean. Iñaki Mendiguren

Neska sartu eta atera egiten zen, umil eta zoriontsu, eztabaida politikorik **ekaiztsuenen** erdian. Karlos Zabala

Zoritxarrez, lurraren lau aldeetatik beste heresia **ekaiztsu** bat nabarmendu zen. Juan Garzia

Egiaren lurraldea da [...], itxuraren benetako egoitza den itsaso zabal eta **ekaiztsu** batez inguratua. Ibon Uribarri

---

ekalde ik **ekialde**.

---

ekandu **1** *iz* ohitura.

Zeinen neke, uher, huts eta ezdeusetako zaizkidan niri mundu honetako **ekanduak** oro! Juan Garzia

Grekoz *ethos* eta latinez *moralis* berbek ez dute horixe baino esan gura: jendearen **ekanduak** edo ohiturak, eta horiei dagokiena. Joxe Azurmendi

Ene nahia da Espainiako ene erreinu guztiak lege, **ekandu**, ohitura, auzitegi beren berdintasunera biltzea, guztiak berdin goberna daitezen Gaztelako legeen arabera, hauek baitira goresgarrienak eta onargarrienak mundu osoan gaindi. Piarres Xarriton

Belaunaldi bakoitzak klasikoak bere modura itzuli behar omen ditu, garaian garaiko **ekandu** eta joeren arabera. Berria - Kultura

Gure **ekandu** zaharrak agintzen duen moduan. Koldo Izagirre

Ez zaiok kentzen **ekandu** gaizto hori; baina tira, honezkero ez dik erremediorik. Juan Garzia

Bere **ekandu** txarretan setatia ez denari eta ororekin gozotasunez hitz egiten duenari. Xabier Kintana

2 (hitz elkartuetan)

Protagonista gizarte **ekandu** onek irudikatzen duten dama lege oneko horietako bat. Berria - Kultura

3 (aditz gisa) ohitu.

Usadio bat zela argudiatu zuten, eta umeak **ekanduak** zeudela, oso goiz hasten zirelako sexu harremanak izaten, «euren gogoz». Berria - Gaiak

---

ekararazi ik **ekarrarazi**.

---

ekarki **1** *adlag* ekarriz, ekartzen.

Une hartan Jon, bakailao saltzailea etorri zen korrika, haur aulki bat **ekarki**. Pablo Sastre

Bisita bi egunetan behin egiten dizue, janaria eta ura **ekarki**. Xabier Montoia

Berak berriz, ardo botila kutxa bat **ekarki**, baratzean sartzearekin zakurrak burua makurtu eta isatsari eragin zion. Pablo Sastre

2 (aditz laguntzailearekin)

Kaxa bat txakolin **ekarki** zidan opari. Aingeru Epaltza

Nor nintzen eta zerk **ekarki** ninduen entzutean, batera agertu ziren ustekabea eta kezka haren begitartean. Aingeru Epaltza

Birla botatze bakotxak huneinbertze pondu **ekarki** ditu, birla erorien arabera. Herria

IKAS errespetatua dela sentitzen dugu eta, zaharren ildotik, **ekarki** du bere fruitua. Herria

Haizerrota horiek ustegabeko kalteak **ekarki** dituzte haatik: xorien hiltzeak. Herria

---

ekarle 1 *iz* dakarrena.

Bai baitzekien gizon-emakumeek aberri deitzen ziotela poz edo minaren **ekarle** zen lurraldeari. Felipe Juaristi

Mezuen **ekarleak** saiatu omen zitzaizkion aditzera ematen, egoera hartan, sasiaren lege latzen barruan, ez zegoela besterik egiterik, ulertu behar zuela. Iñaki Iñurrieta

Orduan gelara norbait datorrela entzuten dut, itzultzen naiz, eta Ivy da, noski, txabusina jantzita, gure bi katiluen **ekarle**. Joxe Austin Arrieta

Joanes borroka politiko guztietako gizkei plazaratu zen, manifestaldietan banderolaren **ekarle**, lelo bizien errepikarazle, megafonia sorbaldan eta banatzeko agiriak ahurrean. Itxaro Borda

Eguzkiaz haruzko lurralde goibelen batetik etorriak, beti abiso hunkigarriren baten **ekarle** izaten ziren guretzat. Patziku Perurena

Bluesak, baltseak (*We´d Danced the Whole Night Through*), jira eta bira, arrandiazko oroitzapenen **ekarle**. Lopez de Arana

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gogorki zatitua gertatu zen bi molekula azido laktikotan, nekearen mezu-**ekarle** tristea baita azido hori. Juan Garzia

Bizi daitezela! Baina egurgile eta ur-**ekarle** izango dira elkarte osoarentzat. Elizen arteko biblia

-Oker, zaude, gatz-**ekarle** -erantzuten zion Pavel Brochek-, ez naiz horren trebea. Felipe Juaristi

Esperantza **ekarle** izan hadi. Herria

Haur eta emakumeak, baita kanpalekuan egurgile eta ur-**ekarle** diren etorkinak ere. Elizen arteko biblia

Charles Peguyren olerki bat irakurri zuen, hunkigarria zinez eta dolorezko momentu hauetan esperantza **ekarlea**. Itxaro Borda

Beti ere izan haugu berri on **ekarle**. Juan Garzia

Martxoa abian denerako, eta batzuetan dezente arinago, otea da lore-**ekarle** fidelena. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izen baten eskuinean)

CLEFE bakotxean biltzen dira 10-15 presuna eta denen artean ezarri dirua emazte proiektu **ekarle** bati prestatzen zaio hitzarmen batean zehaztuak diren baldintzen arabera. Herria

Hurrengo egunean preso gosari-**ekarlea** behartu ez dezaten zuk utzitako kuxidadea garbitzera. Koldo Izagirre

Femio aedoa ere, ezkongaientzat kantatzen zuena, Ker heriotza-**ekarlea** saihestu nahian zebilen. Juan Kruz Igerabide

Oinaze-minen, neke gogorraren eta eritasun herio-**ekarleen** babesean. Juan Garzia

Egun batean bi polizia ezbehar-**ekarle** haiek iritsi ziren gurera: Gallinone eta Piangerò. Pello Lizarralde

Zarata izu-**ekarle** hari aurre egin eta bera indargabetu nahian. Felipe Juaristi

4 (ezkerrean duen izenarekin lotua)

Maite genituen desagertzear zeuden mundu horiek [...] artzainak, itzainak, espartingileak, ehuleak, txokolate prixa moldatzaileak, nago idokitzaileak, arto jorratzaileak, sagardogileak, ardo mingarra zoanetarik mahaietara **ekarleak**. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ekarle bat (3); **ekarle izan** (3); **eta ur ekarle** (3)

---

ekarmen *iz* ekarpena.

Hartu zuen atsedena baliatu nuen, bada, neure **ekarmena** ere tartekatzeko. Anjel Lertxundi

Baina ezkerreko motorra murrizten badut, eskuineko motorraren albo **ekarmena** berdindu beharko dut, hegazkinak ezkerrerantz joko baitu, jakina. Josu Zabaleta

---

ekarpen 1 *iz* ekartzea, eskuarki, askoren arteko zeregin bati inork ekartzen diona.

Ezin interesgarriagoak dira ahozkotasunaren hipotesia sendetsi duten Parry, Havelock, Nagy eta gainerako autoreen **ekarpenak**. Askoren artean

Diltheyren **ekarpenari** Sören Kierkegaard-en existentzia-larritasuna gehitu zion Martin Heideggerrek. Askoren artean

Dirua behar zen laborantzaren **ekarpena** emendatzeko, moldeak modernizatuz, etxaldeak azkartuz eta ttipiak bakanduz. Herria

Baina urbiaindarrok filosofiaren historiari egun hartan eginikako kontribuzionea eta **ekarpena** handia izanik, are handiagoa izan zen Dionisos edo Bakoren omenez ondoren egina. Joan Mari Irigoien

Ezinezkoa da inbertsio eta **ekarpen** gutxiagorekin osasun sistemaren kalitateari eustea. Berria - Euskal Herria

Zer **ekarpen** egin diozu euskal literaturari? Ana Urkiza

Herrialde osoak egin beharko du **ekarpen** hau Israelgo printzearentzat. Elizen arteko biblia

Servet, halere, ez da ezaguna horregatik bakarrik, geografia konparatuaren metodologian ere **ekarpenak** egin baitzituen. Askoren artean

Eragileek eginiko **ekarpenak** zabalduko ditu 'www.konponbidea.info'-n. Berria - Euskal Herria

Jakintza honek ere egin ditu bere **ekarpenak**. Iñaki Heras

Milaka milioi dolarretako **ekarpenak** egiteko. Iñaki Heras

Legebiltzarrera igorriko dute egitasmoa, taldeek **ekarpenak** egin ditzaten. Berria - Euskal Herria

Hainbeste ahotsek Frantziskori eta hasierako frantziskotar historiari egiten dioten **ekarpena** agerian jartzea zuen helburu. Askoren artean

Gero, David Ricardo edo Malthus-en pareko pentsalari handien **ekarpenek** osatu zuten Adam Smithen doktrina. Iñaki Heras

Erretorika klasikoaren kanonen egokitzapen bat da funtsean gure markoa, gaur egungo pragmatiken **ekarpenez** berritu eta osatua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Argazki bildumak ez zion inolako **ekarpenik** egin ikerketari. Joxean Agirre

Bertsolariak berriz, neurtu behar luke bertsogintzari **ekarpenik** egiteko gai den. Andoni Egaña

Keynesen **ekarpenekin** aberasturiko sintesi neoklasikoa izan zen ekonomia teoria nagusia Bigarren Mundu Gerraren amaieratik 70eko urteen hasierako petrolioaren krisia arte. Iñaki Heras

Sabino Aranaren **ekarpentzat** onartzen du independentismoa ETAk. Joseba Zulaika

Lekuonaren **ekarpena** ez da kopla zaharretara mugatzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Manuel Lekuonaren **ekarpenak** ez du jarraipenik izan, eta haren azterketek indarrean diraute gaur egun ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tonalitatean oinarritua baina expresionismoaren, Erdi Aroko musikaren, euskal musikaren edo jazzaren **ekarpenekin**. Berria - Kultura

Erakunde hau kideek egindako **ekarpenekin** finantzatzen da. Iñaki Heras

Ekarpenen Lege berriarekin Eusko Jaurlaritzak diru gutxiago jasotzeko eskatu dute Arabak eta Bizkaiak. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Elizaren kultur eraginak arte ederren eremuan izan zuen bere **ekarpenik** handiena. Iñaki Mendiguren

Filosofia klasikoari egin zizkion **ekarpen** handiengatik. Askoren artean

Sendagileen artean badira arlo honetan **ekarpen** handiak egin dituztenak. Bernardo Atxaga

Ekarpen nagusi gisa honako hau aipa daiteke: fedearen azterketa razionalak autonomiaren printzipioa onartu zuen, eta azken ondorioetara eraman. Askoren artean

Enpirismo dogmatikoaren aurrean, Quinek dogmarik gabeko **ekarpen** propioa egiten du. Askoren artean

Gizonezkoari **ekarpen** intelektuala eskatzen zaiola esango zenuke, eta emakumezkoari, areago, emozionala? Ana Urkiza

Logikaren filosofiaren barneko kontzeptuei dagokienez ere, hainbat **ekarpen** garrantzitsu egin zituen Fregek. Askoren artean

Bitxia bada ere, idatzizko literaturatik -zehazkiago, eleberriaren mundutik- egin ziren **ekarpenik** interesgarrienak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horien **ekarpena** berezia da, nolabait esateko, baina oso gogoangarria. Askoren artean

Askotariko **ekarpenak**, sakonak eta interesgarriak egon dira. Berria - Euskal Herria

Kanpoko **ekarpen** horiek bestelakoturik, mozorroturik, sartu behar izaten dira gehienetan, gizarte jasotzaileak onar ditzan. Edorta Agirre

Gehienek idatzizko **ekarpena** egin zuten; beste hainbatek ahozkoa. Berria - Harian

Horiek horrela, Lockeren planteamenduan garrantzizko **ekarpen** bi azpimarratu behar ditugu. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arabako Ogasun ahaldun Juan Antonio Zarate kexu agertu zen berriz ere, «gehiegizko» **ekarpen** koefizientearengatik. Berria - Ekonomia

Baina nik uste dut, **Ekarpen** Legeari lotuta edo ez, ohitura egokia dela halakoak bultzatzea. Berria - Ekonomia

Ekarpen Foroaren helburua bete dela nabarmendu zuen: [...]. Berria - Euskal Herria

Ekarpen Foroarekin alderatuta, atzoko eztabaidan parte-hartzea zabalagoa izan zen, ikuspegi askotarikoa, eta gazte gehiagok hartu zuen parte. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Egitura bizidun orok jatorri biziduneko beste material- **ekarpen** ororekiko mesfidantza basatia erakusten duenez, [...]. Juan Garzia

Udaletatik eta erakundeetatik jasotzen ditugun diru **ekarpenak** txukun kudeatzeko sortu genuen. Berria - Euskal Herria

Diru **ekarpen** anonimo bakoitzaren atzean zer ezkutatzen den asmatzea nahiko luke batek baino gehiagok. Berria - Harian

Enpresa multinazionalen filialek 1996an egindako inbertsioetatik, laurden bat baizik ez zen finantzatu enpresa nagusiaren kapital- **ekarpenen** bidez. Koro Navarro

Bi faktoreren emaitza da mota honetako finantza- **ekarpenen** egongaiztasuna: [...]. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere ekarpen (7); **beste ekarpen** (9); **beste ekarpen bat** (5); **bi ekarpen** (6); **da ekarpen** (5); **dion ekarpen** (8); **diru ekarpen** (5); **du ekarpen** (7); **duen ekarpen** (11); **egin duen ekarpen** (8); **egindako ekarpen** (11); **eginiko ekarpen** (4); **egiten dion ekarpen** (4); **ekarpen asko** (4); **ekarpen bakarra** (4); **ekarpen bat** (25); **ekarpen bat egin** (6); **ekarpen batzuk** (4); **ekarpen berriak** (6); **ekarpen berririk** (5); **ekarpen egin** (38); **ekarpen egin zituzten** (4); **ekarpen egingo** (6); **ekarpen egiten** (9); **ekarpen eta** (5); **ekarpen foroa** (9); **ekarpen garrantzitsu** (5); **ekarpen garrantzitsua** (14); **ekarpen garrantzitsua egin** (6); **ekarpen garrantzitsuak** (8); **ekarpen garrantzitsuak egin** (7); **ekarpen gehiago** (8); **ekarpen gisa** (7); **ekarpen gisa aurkeztu** (4); **ekarpen guztiak** (14); **ekarpen handia** (24); **ekarpen handia egin** (12); **ekarpen handiak** (11); **ekarpen handiak egin** (8); **ekarpen handiena** (5); **ekarpen handienetako** (4); **ekarpen handirik** (8); **ekarpen handirik egin** (6); **ekarpen hau** (5); **ekarpen hori** (11); **ekarpen horiek** (17); **ekarpen interesgarriak** (4); **ekarpen nagusia** (8); **ekarpen ona** (6); **ekarpen ona egin** (4); **ekarpen politikoa** (4); **ekarpen positiboa** (4); **ekarpen serioa** (4); **ekarpen txikia** (5); **ekarpen ugari** (8); **ere ekarpen** (10); **eta ekarpen** (33); **ez du ekarpen** (4); **hainbat ekarpen** (11); **hainbat ekarpen egin** (5); **haren ekarpen** (7); **zein ekarpen** (17); **zein ekarpen egin** (10); **zein ekarpen egingo** (4); **zenbait ekarpen** (5); **zer ekarpen** (30); **zer ekarpen egin** (17); **zer ekarpen egiten** (6)

anoetako ekarpena (7); **batasunaren ekarpena** (10); **baten ekarpena** (4); **beharreko ekarpena** (4); **bere ekarpena** (53); **bere ekarpena egin** (16); **bere ekarpena egiteko** (4); **beren ekarpena** (11); **beren ekarpena egin** (4); **da bere ekarpena** (4); **dion ekarpena** (15); **dioten ekarpena** (8); **duen ekarpena** (15); **duten ekarpena** (6); **egin beharreko ekarpena** (4); **egin dion ekarpena** (4); **egin duen ekarpena** (4); **egin zuen ekarpena** (5); **egindako ekarpena** (25); **eginiko ekarpena** (8); **egiten dion ekarpena** (9); **egiten dioten ekarpena** (8); **ekarpena aurkeztu** (9); **ekarpena beharrezkoa** (5); **ekarpena da** (12); **ekarpena egin** (64); **ekarpena egin ahal** (4); **ekarpena egin behar** (4); **ekarpena egin dute** (4); **ekarpena egin nahi** (19); **ekarpena egingo** (5); **ekarpena egitea** (9); **ekarpena egiteko** (12); **ekarpena egiten** (12); **ekarpena ere** (11); **ekarpena eta** (10); **ekarpena ez** (8); **ekarpena ez da** (5); **ekarpena ezinbestekoa** (4); **ekarpena izan** (7); **ekarpena izango** (5); **ekarpena kontuan** (5); **eragileen ekarpena** (5); **eta ekarpena** (4); **euren ekarpena** (4); **gure ekarpena** (13); **haren ekarpena** (9); **nire ekarpena** (10); **zuen ekarpena** (8)

beharreko ekarpenak (5); **bere ekarpenak** (14); **bere ekarpenak egin** (4); **beren ekarpenak** (18); **beren ekarpenak egin** (6); **dira ekarpenak** (4); **diren ekarpenak** (5); **diru ekarpenak** (5); **dituzten ekarpenak** (7); **dizkioten ekarpenak** (6); **egin beharreko ekarpenak** (5); **egin dizkioten ekarpenak** (4); **egindako ekarpenak** (14); **eginiko ekarpenak** (8); **ekarpenak aintzat** (4); **ekarpenak bildu** (9); **ekarpenak bilduko** (8); **ekarpenak biltzeko** (10); **ekarpenak biltzen** (5); **ekarpenak egin** (52); **ekarpenak egin ahal** (5); **ekarpenak egin behar** (4); **ekarpenak egin dituzte** (4); **ekarpenak egin ditzakete** (4); **ekarpenak egin ditzaten** (8); **ekarpenak egin nahi** (5); **ekarpenak eginen** (4); **ekarpenak eginez** (4); **ekarpenak egingo** (4); **ekarpenak egitea** (13); **ekarpenak egiteko** (62); **ekarpenak egiteko aukera** (14); **ekarpenak egiten** (7); **ekarpenak egitera** (5); **ekarpenak ere** (11); **ekarpenak eta** (14); **ekarpenak ez** (6); **ekarpenak hartu** (4); **ekarpenak jaso** (19); **ekarpenak jaso eta** (6); **ekarpenak jasoko** (4); **ekarpenak jasotzea** (4); **ekarpenak jasotzeko** (17); **ekarpenak kontuan** (4); **eragileen ekarpenak** (6); **ere ekarpenak** (6); **eta ekarpenak** (48); **eta ekarpenak egin** (6); **eta ekarpenak egiteko** (17); **euren ekarpenak** (10); **euren ekarpenak egin** (4); **finantza ekarpenak** (6); **gure ekarpenak** (5); **guztien ekarpenak** (9); **herritarren ekarpenak** (7); **inguruko ekarpenak** (5); **jasotako ekarpenak** (6); **jendearen ekarpenak** (4); **menpeko finantza ekarpenak** (4); **proposamenari ekarpenak** (4)

anoetako ekarpenaren (7); **bakea ekarpenaren** (5); **bere ekarpenaren** (5); **egindako ekarpenarekin** (4); **ekarpenaren arabera** (5); **ekarpenaren berri** (4); **ekarpenaren inguruan** (9); **ekarpenari buruzko** (6); **orain bakea ekarpenaren** (5)

egindako ekarpenekin (7); **egindako ekarpenen** (5); **eginiko ekarpenen** (4); **ekarpenen bat** (8); **ekarpenen bidez** (7); **eta ekarpenen** (4); **finantza ekarpenen** (6); **jasotako ekarpenekin** (6)

dion ekarpenik (4); **du ekarpenik** (4); **ekarpenik egin** (11); **ekarpenik egiteko** (4); **ekarpenik egiten** (9); **ekarpenik handiena** (8); **ekarpenik onena** (4); **inolako ekarpenik** (10)

---

ekarpentxo *iz* eikarpen txikia.

Nik egin nezake neure **ekarpentxoa**, baina ez litzateke nahikoa izango, ezta urrundik ere. Oskar Arana

Kontuak kontu, Joxeanek beste **ekarpentxo** bat eskaintzen dio euskarazko literaturgintzari, genero guztien gainetik eta handiuste guztien azpitik. Iñaki Arranz

«Egun berezi horretan» Topaguneak bere **ekarpentxoa** egingo duela aurreratu dute antolatzaileek. Berria - Euskal Herria

Hainbeste ohorezko tresnen artean, baita euskaldunon **ekarpentxoa** ere: pistola bat, Guisasola markakoa, Eibarren XIX. mendean egina. Iñigo Aranbarri

"Mutikoak ere garestiak izan daitezke", egiten du iruzkina berak, elkarrizketarako bere **ekarpentxoa** eginez. Oskar Arana

---

ekarrarazi, ekarraraz, ekarrrazten *(orobat **ekarrazi** g.er.)* **1** du *ad* ekartzera behartu. (pertsonak)

Gero, erregina **ekarrarazi** zuen. Juan Kruz Igerabide

1993ko otsailean, gaixotasun hondatzailea agertu eta handik urtebetera, New Yorkera **ekarrarazi** genituen Virgil eta Amy, gurekin egon eta erretinaren eta garunaren funtzioei buruzko test fisiologiko espezializatu batzuk egitera. Xabier Olarra

Ekarrarazi zuten Iruñetik ingeniari bat urtegia berritzeko; lana egin ondoan, urak eraman zuen; berriz egin eta berriz ere eraman, eta hola hiru aldiz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Notarioa **ekarrarazi** du hiritik. Aingeru Epaltza

Hazparneko ikastolako pedagogi edo hezkuntza taldeak, hezkuntza arloko profesional bat **ekarrarazten** du. Herria

-Ene hortzak azter ditzazun **ekarrarazi** zaitut, doktore jauna. Patxi Zubizarreta

Hain itxura txarreko baitzegoen, apeza **ekarrarazi** zion amak San Nikolasetik, azken bidaiarako presta zezan. Aingeru Epaltza

Eta, jakina, ez dut inolako asmorik Ahmet hona **ekarrarazteko** -adierazi zuen Sofik. Fernando Rey

Sultanak egunero **ekarrarazten** zuen bere aurrera, mutila Ramadaneko ilbetea bezain ederra baitzen. Patxi Zubizarreta

Ondoren, jaiki eta Gexurrera abiatu zen Joab, Absalom Jerusalemera **ekarrarazteko**. Elizen arteko biblia

ekitaldi antolatu (46); **ekitaldi antolatu dira** (5); **ekitaldi antolatu ditu** (12); **ekitaldi antolatu dituzte** (20); **ekitaldi antolatuko** (6); **ekitaldi antolatzen** (8); **ekitaldi antolatzen ditu** (5); **ekitaldi aretoan** (7); **ekitaldi asko** (7); **ekitaldi bat** (66); **ekitaldi bat antolatu** (5); **ekitaldi bat egin** (6); **ekitaldi bat egingo** (6); **ekitaldi batean** (55); **ekitaldi batean parte** (6); **ekitaldi baten** (10); **ekitaldi batzu** (8); **ekitaldi batzuk** (7); **ekitaldi berean** (9); **ekitaldi berezi** (29); **ekitaldi berezi bat** (8); **ekitaldi berezi batzu** (9); **ekitaldi berezia** (13); **ekitaldi bereziak** (6); **ekitaldi bertan** (5); **ekitaldi bertan behera** (5); **ekitaldi desberdin** (7); **ekitaldi egin** (17); **ekitaldi egin ziren** (7); **ekitaldi egingo** (14); **ekitaldi egingo dira** (7); **ekitaldi eta** (24); **ekitaldi frango** (11); **ekitaldi garrantzitsu** (6); **ekitaldi garrantzitsua** (7); **ekitaldi gehiago** (9); **ekitaldi gehienak** (8); **ekitaldi gisa** (5); **ekitaldi guziak** (5); **ekitaldi guztiak** (20); **ekitaldi guztien** (5); **ekitaldi guztietan** (6); **ekitaldi handi** (6); **ekitaldi handia** (6); **ekitaldi hartan** (10)

ekitaldi hau (27); **ekitaldi honek** (7); **ekitaldi honen** (5); **ekitaldi honetako** (5); **ekitaldi honetan** (16); **ekitaldi hori** (26); **ekitaldi horiek** (13); **ekitaldi horien** (6); **ekitaldi horietan** (6); **ekitaldi horrekin** (5); **ekitaldi horren** (21); **ekitaldi horretan** (32); **ekitaldi horretan parte** (5); **ekitaldi hunen** (6); **ekitaldi hura** (8); **ekitaldi instituzionala** (5); **ekitaldi izan** (7); **ekitaldi izango** (13); **ekitaldi izango dira** (10); **ekitaldi militar** (12); **ekitaldi militarra** (6); **ekitaldi militarrak** (5); **ekitaldi nagusi** (5); **ekitaldi nagusia** (66); **ekitaldi nagusiak** (10); **ekitaldi nagusian** (6); **ekitaldi ofizial** (6); **ekitaldi ofiziala** (24); **ekitaldi ofiziala egin** (6); **ekitaldi ofizialak** (5); **ekitaldi ofizialean** (11); **ekitaldi osoan** (6); **ekitaldi politiko** (24); **ekitaldi politiko bat** (9); **ekitaldi politikoa** (91); **ekitaldi politikoa egin** (7); **ekitaldi politikoa eginen** (5); **ekitaldi politikoa egingo** (20); **ekitaldi politikoak** (10); **ekitaldi politikoan** (26); **ekitaldi publiko** (14); **ekitaldi publikoa** (7); **ekitaldi publikoak** (5); **ekitaldi sorta** (14); **ekitaldi ugari** (39); **ekitaldi ugari antolatu** (11); **ekitaldi ugari egin** (6); **ekitaldi ugari egingo** (5); **ekitaldi ugari izango** (5); **ekitaldi xume** (7); **ekitaldi xumea** (11)

ere ekitaldi (9); **eta ekitaldi** (59); **eta ekitaldi politikoa** (9); **eta hainbat ekitaldi** (9); **hainbat ekitaldi** (87); **hainbat ekitaldi antolatu** (29); **hainbat ekitaldi egin** (6); **hainbat ekitaldi egingo** (9); **hainbat ekitaldi izango** (8); **halako ekitaldi** (7); **hamaika ekitaldi** (15); **harrera ekitaldi** (6); **hiru ekitaldi** (14); **hitzaldi eta ekitaldi** (5); **izango da ekitaldi** (6); **kirol ekitaldi** (5); **kultur ekitaldi** (23); **lehen ekitaldi** (9); **oso ekitaldi** (5); **ospatzeko ekitaldi** (6); **protesta ekitaldi** (7); **zen ekitaldi** (12); **zenbait ekitaldi** (11); **ziren ekitaldi** (7); **zituen ekitaldi** (5); **zuen ekitaldi** (22); **zuen ekitaldi politikoa** (6); **zuten ekitaldi** (8)

aldeko ekitaldia (28); **aldeko ekitaldia egin** (5); **amaiera ekitaldia** (13); **anoetako ekitaldia** (7); **antolatutako ekitaldia** (10); **atzoko ekitaldia** (13); **aurkako ekitaldia** (7); **aurkezpen ekitaldia** (17); **aurtengo ekitaldia** (31); **azken ekitaldia** (10); **banaketa ekitaldia** (6); **barakaldoko ekitaldia** (8); **batasunak ekitaldia** (6); **batasunaren ekitaldia** (34); **batasunaren ekitaldia debekatzea** (6); **batasunaren ekitaldia debekatzeko** (6); **beceko ekitaldia** (25); **bere ekitaldia** (6); **bigarren ekitaldia** (17); **bosgarren ekitaldia** (6); **da aurtengo ekitaldia** (8); **da ekitaldia** (23); **deitutako ekitaldia** (6); **den ekitaldia** (11); **du ekitaldia** (12); **duen ekitaldia** (20); **dute ekitaldia** (15); **egin zuen ekitaldia** (9); **egin zuten ekitaldia** (7); **egindako ekitaldia** (9); **egingo dute ekitaldia** (9); **eginiko ekitaldia** (5); **egiteko ekitaldia** (5); **egitekoa zen ekitaldia** (5); **eguneko ekitaldia** (7)

ekitaldia amaitu (14); **ekitaldia amaitzeko** (7); **ekitaldia antolatu** (33); **ekitaldia antolatu du** (15); **ekitaldia antolatu dute** (9); **ekitaldia antolatu zuen** (7); **ekitaldia antolatzen** (7); **ekitaldia aurkezteko** (6); **ekitaldia aurkeztu** (5); **ekitaldia aurrera** (5); **ekitaldia baino** (5); **ekitaldia bertan** (17); **ekitaldia bertan behera** (14); **ekitaldia da** (15); **ekitaldia debekatu** (27); **ekitaldia debekatzea** (16); **ekitaldia debekatzeko** (24); **ekitaldia debekatzeko eskatu** (7); **ekitaldia dela** (9); **ekitaldia du** (6); **ekitaldia egin** (75); **ekitaldia egin egingo** (5); **ekitaldia egin zen** (7); **ekitaldia egin zuen** (16); **ekitaldia egin zuten** (22); **ekitaldia egingo** (57); **ekitaldia egingo da** (9); **ekitaldia egingo du** (7); **ekitaldia egingo dute** (33); **ekitaldia egitea** (11); **ekitaldia egiteko** (15); **ekitaldia egitekoa** (6); **ekitaldia egiten** (7); **ekitaldia ere** (6); **ekitaldia eta** (14); **ekitaldia ez** (17); **ekitaldia galarazi** (12); **ekitaldia galaraztea** (5); **ekitaldia galarazteko** (17); **ekitaldia hasi** (17); **ekitaldia hasi aurretik** (6); **ekitaldia hasi baino** (5); **ekitaldia izan** (30); **ekitaldia izan zen** (12); **ekitaldia izango** (26); **ekitaldia izango da** (20); **ekitaldia jokatuko** (9); **ekitaldia jokatuko da** (8); **ekitaldia zen** (5)

emateko ekitaldia (5); **eskubideen aldeko ekitaldia** (8); **eta ekitaldia** (27); **harrera ekitaldia** (10); **hasiera ekitaldia** (15); **hasierako ekitaldia** (8); **hasiko da ekitaldia** (6); **hirugarren ekitaldia** (8); **inaugurazio ekitaldia** (15); **izango da ekitaldia** (8); **jaialdiaren bigarren ekitaldia** (5); **jarraitu zuten ekitaldia** (5); **kursaaleko ekitaldia** (5); **lehen ekitaldia** (27); **lehenengo ekitaldia** (5); **omenezko ekitaldia** (9); **omentzeko ekitaldia** (6); **ospatzeko ekitaldia** (8); **poesia ekitaldia** (5); **presoen aldeko ekitaldia** (5); **protesta ekitaldia** (7); **zen ekitaldia** (25); **zuen ekitaldia** (43); **zuen ekitaldia debekatu** (6); **zuten ekitaldia** (31)

askotako ekitaldiak (5); **aurtengo ekitaldiak** (17); **bestelako ekitaldiak** (11); **dira ekitaldiak** (12); **diren ekitaldiak** (9); **dituzte ekitaldiak** (8); **dituzten ekitaldiak** (5); **duten ekitaldiak** (9); **ekitaldiak antolatu** (13); **ekitaldiak antolatu dituzte** (5); **ekitaldiak antolatuko** (8); **ekitaldiak antolatzeko** (8); **ekitaldiak antolatzen** (10); **ekitaldiak egin** (10); **ekitaldiak egingo** (16); **ekitaldiak egingo dituzte** (8); **ekitaldiak egiteko** (5); **ekitaldiak ere** (8); **ekitaldiak eta** (9); **ekitaldiak ez** (6); **ekitaldiak gaur** (5); **ekitaldiak izango** (5); **ekitaldiak izango dira** (5); **eta bestelako ekitaldiak** (5); **eta ekitaldiak** (19); **gaurko ekitaldiak** (6); **gogoratzeko ekitaldiak** (6); **hasiera ekitaldiak** (5); **inaugurazio ekitaldiak** (5); **kirol ekitaldiak** (6); **kultur ekitaldiak** (11); **lehen ekitaldiak** (5); **omenezko ekitaldiak** (14); **omentzeko ekitaldiak** (6); **ospatzeko ekitaldiak** (5); **protesta ekitaldiak** (8); **ziren ekitaldiak** (5); **zituen ekitaldiak** (5); **zituzten ekitaldiak** (6); **zuen ekitaldiak** (5)

aberri eguneko ekitaldian (6); **amaiera ekitaldian** (17); **amaierako ekitaldian** (6); **antolatutako ekitaldian** (7); **atzoko ekitaldian** (49); **aurkezpen ekitaldian** (51); **aurkezteko ekitaldian** (6); **aurreko ekitaldian** (9); **aurtengo ekitaldian** (64); **azken ekitaldian** (8); **biharko ekitaldian** (5); **bilboko ekitaldian** (5); **bildu ziren ekitaldian** (5); **deitutako ekitaldian** (6); **den ekitaldian** (26); **dira aurtengo ekitaldian** (5); **duen ekitaldian** (8); **dute ekitaldian** (10); **duten ekitaldian** (7); **egin zuen ekitaldian** (7); **egin zuten ekitaldian** (5); **egindako ekitaldian** (50); **egingo den ekitaldian** (12); **egingo duten ekitaldian** (5); **eginiko ekitaldian** (46); **eguneko ekitaldian** (8); **ekitaldian azaldu** (5); **ekitaldian baino** (7); **ekitaldian bildutako** (5); **ekitaldian egin** (9); **ekitaldian egin zituen** (5); **ekitaldian egon** (7); **ekitaldian egongo** (6); **ekitaldian emango** (6); **ekitaldian ere** (11); **ekitaldian esan** (7); **ekitaldian eta** (9); **ekitaldian ez** (11); **ekitaldian izan** (33); **ekitaldian izan zen** (8); **ekitaldian izan ziren** (18); **ekitaldian izango** (8); **ekitaldian izango dira** (5); **ekitaldian parte** (67); **ekitaldian parte hartu** (27); **ekitaldian parte hartuko** (10); **ekitaldian parte hartzeko** (11); **ekitaldian parte hartzera** (5); **gaurko ekitaldian** (7); **harrera ekitaldian** (8); **hartze ekitaldian** (8); **hasiera ekitaldian** (35); **hasierako ekitaldian** (9); **hirugarren ekitaldian** (5); **iazko ekitaldian** (23); **inaugurazio ekitaldian** (35); **inaugurazio ekitaldian izan** (5); **irekiera ekitaldian** (9); **izan ziren ekitaldian** (15); **kargu hartze ekitaldian** (7); **lehen ekitaldian** (15); **omenezko ekitaldian** (8); **parte aurtengo ekitaldian** (7); **parte ekitaldian** (7); **zen atzoko ekitaldian** (5); **zen ekitaldian** (10); **ziren ekitaldian** (24); **zuen ekitaldian** (22); **zuten atzoko ekitaldian** (6); **zuten ekitaldian** (13)

aurtengo ekitaldiaren (7); **aurtengo ekitaldiari** (12); **beceko ekitaldiaren** (9); **da ekitaldiaren** (6); **duen ekitaldiaren** (8); **ekitaldiaren amaieran** (15); **ekitaldiaren aurka** (5); **ekitaldiaren aurkezpenean** (6); **ekitaldiaren aurretik** (8); **ekitaldiaren inguruan** (7); **ekitaldiaren ondoren** (7); **ekitaldiari begira** (6); **ekitaldiari buruz** (9); **ekitaldiari buruzko** (5); **eta ekitaldiaren** (7); **hasiera ekitaldiari** (5); **iazko ekitaldiaren** (6); **zen ekitaldiaren** (6); **zuen ekitaldiaren** (7)

antolatutako ekitaldien (9); **antolatutako ekitaldietan** (7); **aurreko bi ekitaldietan** (5); **aurreko ekitaldietan** (9); **azken ekitaldietan** (6); **bi ekitaldietan** (8); **diren ekitaldien** (7); **diren ekitaldietan** (10); **diren ekitaldietan parte** (5); **dituzten ekitaldietan** (5); **ekitaldiekin bat** (5); **ekitaldien artean** (12); **ekitaldien barruan** (23); **ekitaldien berri** (8); **ekitaldietan parte** (37); **ekitaldietan parte hartu** (6); **ekitaldietan parte hartzea** (6); **ekitaldietan parte hartzeko** (9); **ekitaldietan parte hartzen** (5); **ekitaldietara joateko** (9); **ekitaldiez gain** (6)

antolatutako ekitaldira (5); **aurkezpen ekitaldira** (6); **aurtengo ekitaldiko** (11); **aurtengo ekitaldirako** (12); **den ekitaldira** (8); **duen ekitaldira** (5); **egingo den ekitaldira** (5); **ekitaldiko hitzaldian** (5); **ekitaldira deitu** (6); **ekitaldira iritsi** (6); **ekitaldira joan** (8); **ekitaldira joateko** (10); **ekitaldira joateko deia** (5); **ekitaldirik antolatuko** (5); **ekitalditan parte** (5); **hainbat ekitalditan** (8); **hasiera ekitaldiko** (6); **inaugurazio ekitaldiko** (6)

---

ekitalditxo *iz* ekitaldi laburra.

Ekitalditxo bat egin eta lotu, gero beste bat eta holan. Xabier Amuriza

"Zamora" tabernan kafea hartu eta musean **ekitalditxo** bat egin ondoren abiatu zen. Joxemari Urteaga

Igorrek **ekitalditxo** hau merezi du. Berria - Euskal Herria

---

ekitate **1** *iz* bakoitzari merezi duena ematean datzan nolakotasuna.

Ohiturak, **ekitatea**, zuzenbide goiburuak eta jurisprudentziak saihestezinak dira lege zibilaren aplikazioan. Andres Urrutia

Ekitatea lege naturalerako itzulera da, lege positiboen isilune, kontraesan edo gorabeheretan. Berria - Euskal Herria

Lege naturalak behartu egiten ditu gobernariak, zamak Estatuko herritarren gain **ekitatez** ezartzera. Esteban Antxustegi

Ekitatearen kontra zihoazela, baina eskubideak zapaldu gabe; zentzugabeak izan zirela, tiranikoak baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

Trilogia horren osagaiei, ordea, ez zaie **ekitatezko** tratamendurik emango. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ekitate naturalak lege-hausle guztiak neurri berean zigortzea agintzen duelako. Esteban Antxustegi

Erromako azken legeek, Justinianoren Bildumara ekarritako horiek, onuragarritasun eta **ekitate** naturalean dute gogoa. Andres Urrutia

Une horretan ezin ditu norberak gauzak eta gizakiak arautu, erakunde iraunkorrak moldatzen dituen halako zuhurtziaz, ezta berezko **ekitate** horren bidez ere, horiek baitira giza legegileak behartzen dituzten oinarriak. Berria - Kirola

Holako **ekitate** xume anitzez egina izan da alemanen kontrako erresistentzia jendeen artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

3 (hitz elkartuetan)

Erromatarrak suntsitu zituzten herriek beren konkistetan gehiegikeriak egin eta gero, libertate-espirituak **ekitate**-espiritura ekarrarazi zituen. Iñaki Iñurrieta

· Desberdintasuna inefizientea al da, edo, ekonomilari askok errepikatzen duten legez, **ekitate** eta justizia arazoa al dakar soilik? Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta ekitate (3)

---

ekitatibo *izond* ekitatearen araberakoa.

Bikoteek hasieran arau **ekitatiboak** ezartzen dituzte, zuk nirean eta nik zurean, asteburuak txandaka, dena konpartitu nahi izaten dute. Joxean Agirre

Hori guztia desberdintasunak murriztuko lituzkeen produktibitatearen banaketa sozial **ekitatiboarekin**. Iñaki Heras

Aberastasun handiagoak ahalbidetzen ote duen banaketa **ekitatiboagoa**, edo aitzitik, banaketa igualitarioak ahalbidetzen duen hazkunde handiagoa. Iñaki Heras

Ez nituen albora utzi hizkuntza unibertsalak; aztertu nituen esperantoaren nondik-norakoak -hizkuntza "**ekitatibo**, sinple eta ekonomikoa", Lunario sentimentalaren arabera-. Juan Garzia

Hala ere, legea bera **ekitatiboa** al da beti? Berria - Gaiak

---

ekitatiboki *adlag* era ekitatiboan.

Kide bakoitzari boto bana ematea, alegia, baloiaren jabetza kide guztien artean partitzea **ekitatiboki**. Iñaki Heras

---

ekitazio *iz* zaldiketa.

Erabil zitezkeen metodoen jakitun izan nintzen pixkanaka, puntua egiteko orratza, perrexilaren txortena, xaboi-urezko injekzioak, **ekitazioa**. Joseba Urteaga

Behin **ekitazioa** kirol garestiaren gradura jaitsirik, ulertezinak dira dagoeneko, eta bitxikeria dirudite, sabela lur arrasean ("arrapalada bizian") eta bridari kosk egin ("ezin gehiago jasan") esapideak. Juan Garzia

---

ekite *iz* ekintza.

Gure aldetik, ETAren **ekite** armatuak eragindako biktimen gaia bere dimentsio osoan aztertzeko eta prozesuaren garapenaren baitan lagungarriak izan daitezkeen keinuak egiteko prest gaude. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Honela bada, intelektualak filosofian, artean, zientzian eta literaturan aritzen direnak lirateke, **ekite** hauek gizarteaz eta gizartearen jestiogintzaz ideiak eman baititzakete. Berria - Kultura

Ez-**ekite** horren atzean herabetasuna eta koldarkeria egongo ziren, noski, baina, sakonago, zapaltzen gintuzten haiexen balio-sistema bera geneukala ohartzen naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ekitear *adlag* ekiteko zorian.

Aita bidaia handi bati **ekitear** zagok. Urtzi Urrutikoetxea

Lortzear izan ziren hala ere, Zaratek txakalaldi handia jasan baitzuen Zaldiarango bigarren igoerari **ekitear** zela. Berria - Kirola

---

ekiztatu *izond* eguzkiak berotua.

Salmenta mahai **ekiztatu** batean, gasnaren perfekzioaren miresteko suertea noizbait agitzen baldin bazitzaigun. Itxaro Borda

---

eklektiko *izond* zenbait estilo, joera edo ideiatako osagaiak dituena.

Ni sekula ez naiz izan kantautore bat edo blues musikari bat, pertsona **eklektikoa** naiz, eta esparru honek ematen dit askatasuna oso gustukoa dudan arlo batean aritzeko: konponketen idazketan. Berria - Kultura

Irakurle arretatsua zen, oroimen sendokoa, **eklektikoa** eta nekaezina. Juan Garzia

Sadak festaren ikuspegi desberdinak bateratu nahi dituen ikuspegi **eklektiko** hori jasotzen du, beraz. Askoren artean

Gure konpainia ezaguna da justuki estilo **eklektikoagatik**. Berria - Kultura

Etxeberria nafarrak bertsoei jarri dien musika **eklektikoa** da, Carl Orffen neoklasizismotik gertu, heroikoaren eta elegiaren artean, tonalitatean oinarritua baina expresionismoaren, Erdi Aroko musikaren, euskal musikaren edo jazzaren ekarpenekin. Berria - Kultura

Lana **eklektikoa** zen, estilo desberdinetako elementuen hibridaziotik sortua. Patxi Iturritegi

Aulkiak, errezelak, alfonbra, sofa eta mahai gaineko estalkiak, gela nagusian ez bezala, kolore hil askotarikoak ziren eta kolore-aniztasun hark halako giro **eklektiko** bat ematen zion gelari. Anjel Lertxundi

Hitzordu **eklektikoak** programatuak ditu Biarritz Culture antolatzaileak. Berria - Kultura

Irakurle arretatsua zen, oroimen sendokoa, **eklektikoa** eta nekaezina. Juan Garzia

Sadak festaren ikuspegi desberdinak bateratu nahi dituen ikuspegi **eklektiko** hori jasotzen du, beraz. Askoren artean

Geroago, Historiaren Museora joan ginen; adreilu gorrizko eraikin **eklektiko** bat da, arkitekto ingeles batek diseinatua. Xabier Olarra

K. a. V. mendean sortzen diren doktrina **eklektikoetan** ere ez da faltako arrazoiaren subiranotasuna aldarrikatuko duenik. Askoren artean

Irakurle **eklektikoa** zirudien. Ramon Saizarbitoria

---

eklektizismo *iz* jarrera eklektikoa.

Fedeak -edozein motatako sinesmenak- huts egiten duenean, sistema faltatzat hartzen dugun egonezinak **eklektizismora** garamatza ia ezinbestean. Anjel Lertxundi

Modernitateak ezinbestekoa duela **eklektizismoa**. Anjel Lertxundi

Egia bat bakarra da -eta zure **eklektizismo** horrekin zatikako, puskakako egia bat baizik ez duzu inoiz lortuko. Josu Zabaleta

Hirugarren honetan, hastapenetako freskotasuna erabat galduta, bigarren diskoaren akats berberetan erori ziren, nik uste: errazkeria, **eklektizismoa** eta ideia falta dira nagusi album honetan. Patxi Iturritegi

Schnittke errusiar konpositore garaikideak 1979an idatzi zuen Piano eta Harirako Kontzertua, **eklektizismoaren** ildotik garatzen den mugimendu baterako asmakizuna. Berria - Kultura

Ezkerrekoak izateari utzi gabe, **eklektizismo** politiko halako bat praktikatzen dute Einaudiko arduradunek eta kulturaren zorroztasun analitikoa bilatzen. Berria - Kultura

Ideia argi eta bereziak gabe, irakurleak **eklektizismo** ilunpilatu bat topatzen badu, zilegi bekio garaiko informazio edo kulturaren agergarritzat jotzea hori ere. Joxe Azurmendi

Erlijio-**eklektizismoaren** idealak estatu unibertsalen zenbait gobernari liluratu zituen. Iñaki Mendiguren

---

eklesiastiko 1 *izond* elizakoa, elizari dagokiona.

Batzuek gobernu politikoarekin zuten zerikusia, beste batzuek gobernu ekonomikoarekin, gehienek gobernu **eklesiastikoarekin**, eta batzuek gobernu zibilarekin. Iñaki Iñurrieta

'Nik bedeinkazio **eklesiastikoa** emango nieke putakume horiei guztiei!' zioen batek. Joseba Sarrionandia

Gotzaina edo beste edozein eliz edo herri-agintari izango zen, hau da, erakunde **eklesiastikoaren** glorian zuzenki interesatutako norbait. Bernardo Atxaga

Ez duzu jakinen noski *Entredicho* hori XVI. mendeaz geroztik probintzian indarrean jartzen zen lehen aldia genuela, don Serapiok esanda dakit nik, erdi aroko zigor **eklesiastiko** berezia zen. Koldo Izagirre

Kontzilio **eklesiastikoei** begira. Unai Elorriaga

Lehen Gurutzadaren garaian, bi gatazka **eklesiastiko**-politiko horietako azkenekoa baino berrogei urte geroago, [...]. Iñaki Mendiguren

Horrek esan nahi du, *laiko* hitzak, estatus **eklesiastikoaz** aparte, bazuela beste adiera bat ere, kultur mailakoa: alegia, eskolarik ez zutenak, irakurtzen ez zekitenak. Askoren artean

2 *iz* elizgizona.

Bera baitzen saldo horretan guztian, interpretariek berek baino areago oraindik, latinez aise hitz egin zezakeen bakarra, **eklesiastiko** nagusia zenez, eta goi mailako ikasketak zituenez. Jon Alonso

Hemen **eklesiastiko** nagusiren batek sartu behar izan du hatza, eskua, burua, apika Portoko gotzainak, Pedro Pitôesek, eta segurutik Bragako artzapezpikuak. Jon Alonso

3 Itun Zaharreko liburuetako baten izena.

Eklesiastikoan ez ezik Erran Zaharretan eta Salmoetan ere azaltzen denaz ari natzaizu: [...]. Joan Mari Irigoien

---

eklesiologia *iz* dotrina teologikoa, Elizaren sortzeaz, izaeraz eta kideko alderdiez diharduena.

Anaia txikiek pobretasuna oinarritzeko teologia eta **eklesiologia** garatu zituzten, fraide mendikanteek Elizan beren bizimolde propio eta bereziaren arabera bizitzeko zuten eskubidea legitimatzeko. Askoren artean

1989an, Alemaniara joan zen ikastera eta **eklesiologian** doktoratu zen. Herria

---

eklipsatu, eklipsa, eklipsatzen da/du *ad* ikusezin bihurtu. ik **eklipse 4**.

Hainbestekoa izan zen sortu zuen ikusmina, zalaparta, hain zen lan ezberdina, bere gainerako lan guztia **eklipsatu** izan duela. Berria - Kultura

Taldeko gainontzeko partaideen lana **eklipsatzen** zuen bere distira faltsuarekin. Berria - Kultura

Ez dago zer egiterik: elkarri jarraitzen dioten hainbat betikotasun, irudi finkoen sorta, elkar **eklipsatzen** dutenak txandaka, honek ez du mugimendurik egiten, ez denborarik, ez historiarik. Xabier Arregi

Ez naiz **eklipsatzen** ez banaiz; nire aurpegiak ez badu nire aurpegia estaltzen, nire besoek nire besoak, nire gorputzak ez badu nire gorputzak duen leku doi-doia hartzen, ez naiz ezer, ez naiz izatera iristen. Karlos Linazasoro

---

eklipse 1 *iz* argizagi baten estaltze edo itzaltze igarokorra, tartekatzen den beste argizagi batek sortua edo argizagi hura besteak eraturiko itzaletik igarotzeak eragina.

Eklipsea Lurra eguzkia eta Ilargiaren artean jartzen denean gertatzen den fenomenoa da. Berria - Gaiak

Badu Aristotelesen lanaren berri, eta aurki **eklipsea** izango dela ere badaki. Martin Anso

Zer gertatzen da **eklipsea** sortzen denean? Jon Muñoz

-Ruche jauna, bazenekien Talesek **eklipse** bat iragarri zuela? Jon Muñoz

Ezaguna baita astronomo maiek, Aristotelesen laguntzarik gabe, **eklipseak** iragartzen bazekitela. Martin Anso

Eguzkiaren **eklipseak** eta ilargiaren ezkutatzeak, halaber, kausa ezberdinek eraginak direla pentsatu behar duzu. Xabier Amuriza

Peru aldean, ilargiaren **eklipsea** zenean, nola txakurrak ilargiari zaunka eta txilio egoten diren, uste zuten animalia hauek ilargiarekin harreman bereziren bat zutela. Pello Zabala

Ilargi ezkoa, berriz, Neptunoren erresuma meneko zaion argizagi hori, ia azken beltzeraino zetzan **eklipseak** jorik. Juan Garzia

Eklipse baten amaiera ematen zuen. Josu Zabaleta

Hain zen handia hegazti hori, ezen, "hegalak zabaltzen zituenean, eguzkia estaltzen baitzuen **eklipse** baten modura. Martin Anso

Saia naiteke zerbait lekuz aldatzen, piztuz amodioak, katastrofeak eta **eklipseak**, eta gauzen insurrekzioa eraginez. Joseba Sarrionandia

2 (izenondoekin)

Hemen ez da **eklipse** osoa izanen, nahiz eta Eguzkia asko motelduko duen. Patziku Perurena

Ez zen **eklipse** osoa, eta ez zuen erabat ilunduko, baina, desorduari erreparatu gabe, lotarako ezkutatu ziren txoriak, eguzkia indarra galtzen hasi orduko. Imanol Zurutuza

Euskal Herrian, ordea, **eklipse** partziala baino ez da ikusiko. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dugu jakiterik izango **eklipse** egunean fenomenoa ikusteko oskarbi egongo ote den. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berez, Artizarra planeta Lurraren eta Eguzkiaren artetik igarotzea besterik ez da; ez da Eguzki **eklipsea** bezain ikusgarria izango, beraz. Berria - Gaiak

Eguzki-**eklipsea** izan zen egun haietako batean, eguerdi aldean. Imanol Zurutuza

Erabateko eguzki **eklipsea** ikusi ahalko dute bihar Brasilen, Afrikako iparraldean, Erdialdeko Asian eta Mongolian. Berria - Gaiak

Goizeko hamaiketan hasiko da eguzki **eklipsea** eta eguerdiko ordu bata eta hogeita hemezortzi minututan bukatuko. Patziku Perurena

Bezperatik komunikabideetan iragarrita zegoen gau hartan ilargi-**eklipsea** izango zela. Aitor Arana

Egun hartan egokitu zen ilargi-**eklipse** bat. Pello Zabala

Ilargi **eklipsea** ikusi da asteartean, urtarrilaren 9 aratsean, iparralde huntarik bezala (Hendaiako Abadia Jauregia) hegoaldeko Bizkaian ere, lurraren itzalak ilargia itzali duen artean. Herria

Ilargi-**eklipsea** gertatu zeneko gaua izan zen (maiatzaren 13.a): ustekabean harrapatu gintuen. Joxe Austin Arrieta

Argitasuna, beraz, ez da joan zen urriaren 3ko eraztun **eklipsean** bezainbeste jaitsiko. Berria - Gaiak

5 irud/hed

Aro Heroikoa, berez, aldi iragankorra baldin bada, bere etorreraren eta atzerakadaren seinalerik ziurrenak bere berariazko idealen epifania eta **eklipsea** dira. Iñaki Mendiguren

---

eklosio *iz* zerbait, eskuarki materiala ez dena, irekitzea edo jaiotzea.

Unibertsitatea, garai hartan, **eklosio** bat izango zen. Ana Urkiza

«Espresioaren enfasia» gustatu zitzaion, «eta kantariaren xuxurla, eta aldizka, hitzaren **eklosioa**». Berria - Kultura

Haurragan, lehenbizi, zentzumenen **eklosioa** azaltzen da. Jenaro Garate

Gero dator bere potentzien **eklosioa**: den-dena aditu beharra, bere nahiei eustea, jasotzen duen guztia oroimenean gordetzea. Jenaro Garate

Beranduago pizten da hirugarren **eklosioa**: kontzientziarena, epaimenarena, maitasunarena; hitz batez, gogoarena. Jenaro Garate

---

ekobarometro *iz* ingurumenaren egoerari buruzko ebaluaketa.

Siadeco enpresak bigarren **Ekobarometro** soziala egin du; lehena 2001ekoa da, eta atzo aurkeztu zuen, Aste Berdearen barruan. Berria - Euskal Herria

2001eko **Ekobarometroko** datuekin alderatuz gero, ingurumenak 4. lekuari eusten dio lehentasunezko helburuen artean. Berria - Euskal Herria

---

ekoentzefalograma *iz* ultrasoinuen bidezko entzefalograma

Elektroentzefalograma eta **ekoentzefalograma** erabiltzen ziren epilepsiaren guneak antzemateko. Berria - Gaiak

---

ekoeraginkortasun *iz* ingurumena zaintzea kontuan hartzen duen eraginkortasuna.

Ekoeraginkortasun globala eta sektoriala. Berria - Euskal Herria

Honakoak: bioaniztasuna (6), zarata (10), ur kontsumoa (13), materialen kontsumoa (15), ingurumen alorreko gastu publikoa (18) eta ekonomiaren **ekoeraginkortasuna**, oro har (22). Berria - Euskal Herria

---

ekofeminismo *iz* feminismoaren adarra, ingurumena zaintzea kontuan hartzen duena.

Ekofeminismoak eredu tradizionalera itzultzeko arriskua omen duela aipatzen da gaiari buruzko hainbat testutan. Berria - Harian

Naturara buelta proposatzen du **ekofeminismoak**? Berria - Harian

Baserritarrek zer paper dute **ekofeminismoan**? Berria - Harian

EHNE sindikatuko kide da, eta ongi ezagutzen ditu **ekofeminismoaren** oinarriak. Berria - Harian

---

ekogarapen *iz* ingurumena zaintzea kontuan hartzen duen garapena.

Ekogarapenak herrialde pobreak garatzea bilatzen zuen, baina ekosistemekiko errespetuz jokatzea eskatzen zuen, Lurreko bizi baldintzei kalterik ez egitea. Berria - Gaiak

1972an, Stockholmen **ekogarapenaren** nozioa eztabaidatuko dute. Berria - Gaiak

Garapen iraunkorra 70eko hamarkadako **ekogarapena** ordezkatzeko sortu zutela. Berria - Gaiak

---

ekogarraio *iz* ingurumena zaintzea kontuan hartzen duen garraioa.

Ekogarraioa esaten diogu horri. Berria - Harian

Ekogarraioa bai, nuklearrik ez. Berria - Harian

---

ekografia *iz* teknika medikoa, gorputzaren barnealdea aztertzeko ultrasoinuak erabiltzen dituena.

Azken boladan, fisikarien eskutik, badituugu hainbat aparatu konplexu, armategi oso bat hortxe, **ekografiaz** eta erresonantzia magnetiko nuklearrez. Juan Garzia

Azterketa ginekologikoak eta **ekografiak** edozein arazo garaiz atzematen laguntzen dute. Luis Elberdin

Ekografiak oso informazio garrantzitsua ematen digu barruko genitalei buruz, hau da, uteroari eta obarioei buruz. Luis Elberdin

Bagenekien, **ekografiei** esker, mutila zetorrela. Xabier Mendiguren Elizegi

Ekografia egin zioten atzo, eta zuntz haustura bat duela baieztatu zuten. Berria - Kirola

Egun batzuk lehenago egindako **ekografiaren** emaitza ere negatiboa izan zen, esan nahi baitzuen ongi zituela gaixoak gibela, behazun-maskuria eta pankreasa. Imanol Zurutuza

Herri txar batean urik ez dute bainan **ekografia** egiteko tresna muntatua dute. Herria

Hasteko, **ekografia** egiten da, haurdunaldia zenbat denborakoa den zehazteko. Luis Elberdin

Oso normala da zitologiarekin batera **ekografia** egitea. Luis Elberdin

Garondoaren dentsitatea neurtzeko **ekografia**. Berria - Gaiak

Hamabi asteko umeki baten keinuak atzeman dituzte **ekografia** teknika berri bati esker. Berria - Gaiak

---

ekografo *iz* ekografiak egiteko tresna; ekografian espezialista.

Denak ibili gara zoli-zoli, hainbestean bederen, inguru-mingurukoak diot, **ekografoa** izan ezik. Karlos Linazasoro

---

ekogune *iz* ekoparkea.

Ekoparkeak deitu dituzten horiek, hemen **ekoguneak** edo ez dakit zelan deituko ditugun. Berria - Harian

ekohiri *iz* hiri ekologikoa.

4.600 etxe berri daude aurreikusita **ekohiri** honetan, Nafarroako Gobernuaren proiekturik kuttunenetakoan. Berria - Euskal Herria

Vinsak, Nafarroako etxebizitzen erakunde publikoak, Sarrigurengo **Ekohirian** egingo dituzten 1.030 etxetatik bat jasotzeko ia hamar mila eskaera jaso ditu. Berria - Euskal Herria

---

ekoitzi *(**1158** agerraldi, **46** liburu eta **578** artikulutan; ETCn **21.439** agerraldi: cf **ekoiztu** **852** agerraldi, **47** liburu eta **419** artikulutan; ETCn **2.808** agerraldi)* , ekoitz(i), ekoitzen **1** du *ad* eman, sortu edo egin, eskuarki ekonomia jardueraren bitartez edo horren ikuspegitik. ik **produzitu**.

Hiru dira ekonomiaren antolakuntzari buruzko funtsezko galderak: zer merkatugai eta zenbat **ekoitzi** ; nola **ekoitzi** ondasunak; eta norentzat **ekoitzi** ondasun horiek. Iñaki Heras

Zer **ekoitzi** galderari erantzun behar eta, ekonomia eskuliburuetako adibideei jarriki, horrenbeste kanoi edo horrenbeste gurin erabaki behar da. Iñaki Heras

Tokian tokikoa **ekoitzi** , garatu, prestatu, txukunduko da, kopuru txikian baina kalitate onari eutsiz. Edorta Agirre

Ondasunen eta zerbitzuen eskaintza eskasia dagoenez, enpresek gutxiago **ekoizten** dute eta lanpostuak deuseztatu egiten dira. Iñaki Heras

Hasieran, oinarrizko ekonomia-unitateak (familiak, klanak, herriak), beren baitara bildurik bizi dira, eta **ekoizten** dutenaren parterik handiena kontsumitzen dute. Koro Navarro

Aurrez prestatutako janariak **ekoizten** ditu K-Onarik. Berria - Harian

Ondasun-unitate bat **ekoizteko** behar diren lan-orduak. Koro Navarro

Sagar zukua eta sagarnoa **ekoizten** dituzte. Berria - Ekonomia

Pistola bat **ekoizten** den bakoitzean, gerraontzi bat itsasoratzen den bakoitzean, kohete bat espaziora bidaltzen den bakoitzean, lapurretan egiten zaio gosez bizi eta janaririk ematen ez zaienei. Iñaki Heras

Kapitalaren faktorean aberatsa den herrialde batek merke samar **ekoitziko** ditu kapitalaren alderdia garrantzitsua duten produktuak, herri horretan kapitalaren kostua ez baita handia izango. Koro Navarro

Saudi Arabiak iragarri du egunean 9,5 milioi upel **ekoiztetik** 11 milioi **ekoiztera** pasatuko dela. Berria - Ekonomia

Biodiesela era garbiagoan **ekoitzi** nahi du Gaikerrek. Berria - Gaiak

Kantitatea egiteko orde, kalitatea **ekoiztea** hautatua du hemengo laborariak. Herria

Azpiproduktu bat da beroa, ez energia **ekoizteko** prozesuaren erdiko fase ezinbestekoa, motor gehienetan bezala. Irene Aldasoro

2 (jarduera ekonomikoaz bestelakoetan)

Agureak, emakumeek eta umeek pobre itxura zuten, besterik gabe; miseriaren trokelak milaka **ekoizten** dituen tipo eta irudi lauso horietakoak ziren. Koro Navarro

ADN zati horietariko bakoitzak kate polipeptidiko bat **ekoizten** du, eremu bati dagokiona. Juan Garzia

Duela hogeitsu urte, egunkari guztien lehen orrialdeak zientziaren azken mirariaren berri ematen zuen, eta miretsirik bezain kezkaturik uzten, horrenbestez, mundua: haur bat **ekoitzi** zutela, alegia, laborategian. Juan Garzia

Diskurtsoa eta sistema ez lirateke **ekoitziko** -eta elkarrekin- erreserba itzel honen gorenean baino. Xabier Arregi

Munduko hizkuntza gehienetako hots gehienak biriketatik kanporantz doan aire-etorriaz **ekoizten** dira. Lourdes Oñederra

Sabai bigunak faringearen atzeko pareta ukitu eta sudurreko bidea ixten duenean, hots ahokariak **ekoizten** dira. Lourdes Oñederra

Eta beste galdera bat: gizarte "alternatiboak" hedabide alternatiboak **ekoizten** ditu? Txema Ramirez de la Piscina

3 ikus-entzunezko emanaldiak egiteko gastuak finantziatu edo baliabideak eman.

Bertako estudioek ehun film inguru **ekoizten** dituzte urtean. Berria - Kultura

Filmak bi milioi euroko aurrekontua izan du, eta Palestinak, Israelek, Frantziak, Alemaniak eta Herbehereek **ekoitzi** dute. Berria - Kultura

Zinema alorrean **ekoizteko** diru asko behar da, batez ere film luzeak egiteko. Berria - Kultura

Gure azpiegiturak hobekien **ekoitzi** dezakeen euskarria da film laburra. Euskal Herrian **ekoitzitako** hamar film labur emango dituzte gaur Donostian. Berria - Kultura

Alicia Produce ere sarituko dute, Julio Medemen Euskal Pilota dokumentala **ekoiztean** «hartutako arriskuagatik». Berria - Kultura

Aurreneko urtean, 2005ean, Hamlet eta Ekaitza **ekoitziko** ditugu. Berria - Kultura

ABAOk 'Dulcinea' opera **ekoitziko** du beste bost teatrorekin batera. Berria - Kultura

1990az geroztik, Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdiak ahalegin berezia egin du antzerki obra propioak **ekoizteko** . Berria - Kultura

'Kreotos 2.0' antzezlana **ekoitziko** du Mirak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

angel amigok ekoitzi (3); **antzokiak ekoitzitako** (6); **auto gutxiago ekoitziko** (3); **bat ekoitzi** (7); **batera ekoitzitako** (3); **berak ekoitzitako** (6); **diskoa ekoitzi** (3); **ekoitz dezake** (3); **ekoitz ditzake** (3); **ekoitzi behar** (6); **ekoitzi beharko** (4); **ekoitzi den** (5); **ekoitzi diren** (4); **ekoitzi ditu** (8); **ekoitzi du** (25); **ekoitzi duen** (7); **ekoitzi dute** (14); **ekoitzi eta** (24); **ekoitzi nahi** (8); **ekoitzi zen** (3); **ekoitzi zituen** (6); **ekoitzi zuen** (6); **ekoitzi zuten** (4); **ekoitziko dela** (3); **ekoitziko dira** (4); **ekoitziko direla** (3); **ekoitziko ditu** (21); **ekoitziko dituela** (4); **ekoitziko dituzte** (8); **ekoitziko du** (10); **ekoitzitako film** (3); **ekoitzitako filma** (3); **ekoitzitako filmak** (3); **ekoitzitako lanak** (5); **ekoitzitako ondasunen** (3); **ekoitzitako produktuak** (4); **eta ekoitzitako** (3); **eta norentzat ekoitzi** (3); **euskal herrian ekoitzitako** (4); **gehiago ekoitzi** (9); **gehiago ekoitzi du** (3); **gehiago ekoitziko** (10); **gehiago ekoitziko ditu** (3); **gutxiago ekoitzi** (6); **gutxiago ekoitziko** (8); **gutxiago ekoitziko ditu** (4); **herrian ekoitzitako** (4); **milioi upel ekoitziko** (4); **norentzat ekoitzi** (3); **obra ekoitzi** (4); **produktuak ekoitzi** (3); **produktuak ekoitziko** (3); **upel ekoitziko** (5); **upel gehiago ekoitziko** (3); **zer ekoitzi** (3)

argindarra ekoizteko (5); **bat ekoiztea** (3); **bat ekoizteko** (6); **biodiesela ekoizteko** (5); **ekoiztea da** (3); **ekoiztea eta** (6); **ekoiztea lortu** (3); **ekoiztea proposatu** (3); **ekoizteko ahalmena** (4); **ekoizteko asmoa** (6); **ekoizteko aukera** (3); **ekoizteko behar** (7); **ekoizteko behar den** (5); **ekoizteko erabakia** (3); **ekoizteko erabiltzen** (6); **ekoizteko eta** (6); **ekoizteko gai** (10); **ekoizteko gai da** (3); **ekoizteko gaitasuna** (5); **ekoizteko prozesua** (3); **erregai nuklearra ekoizteko** (3); **eta ekoizteko** (5); **gehiago ekoiztea** (8); **gehiago ekoiztea proposatu** (3); **gehiago ekoizteko** (11); **gutxiago ekoizteko** (3); **milioi upel ekoizteko** (3); **nuklearra ekoizteko** (4); **ondasunak ekoizteko** (5); **upel ekoizteko** (4); **upel gehiago ekoiztea** (5); **upel gehiago ekoizteko** (3)

armak ekoizten (5); **autobus ekoizten** (3); **autobus ekoizten ditu** (3); **baino gehiago ekoizten** (3); **bakarrik ekoizten** (5); **bat ekoizten** (8); **batean ekoizten** (4); **batek ekoizten** (3); **egun ekoizten** (5); **ekoizten ahal** (9); **ekoizten ari** (7); **ekoizten da** (18); **ekoizten den** (21); **ekoizten dira** (16); **ekoizten direla** (7); **ekoizten diren** (18); **ekoizten ditu** (41); **ekoizten dituen** (31); **ekoizten dituen enpresa** (3); **ekoizten ditugu** (3); **ekoizten dituzte** (15); **ekoizten dituzten** (22); **ekoizten dituztenak** (3); **ekoizten dituztenek** (3); **ekoizten dituztenez** (3); **ekoizten du** (18); **ekoizten duen** (20); **ekoizten duena** (3); **ekoizten dute** (24); **ekoizten duten** (21); **ekoizten dutena** (3); **ekoizten eta** (10); **ekoizten ez** (4); **ekoizten hasi** (9); **ekoizten hasi zen** (4); **ekoizten hasi ziren** (3); **ekoizten hasiko** (4); **ekoizten hasteko** (3); **ekoizten zen** (4); **ekoizten ziren** (3); **ekoizten zituen** (5); **ekoizten zituzten** (4); **ekoizten zuten** (6); **ere ekoizten** (5); **eta ekoizten** (9); **euskaraz ekoizten** (3); **gasna ekoizten** (3); **gehiago ekoizten** (12); **gehien ekoizten** (11); **gehien ekoizten duen** (3); **gehien ekoizten duten** (3); **gora ekoizten** (3); **gutxiago ekoizten** (10); **inguru ekoizten** (3); **intsulina ekoizten** (6); **kilowatt ekoizten** (3); **kilowatt ekoizten zituen** (3); **milioi upel ekoizten** (9); **nola ekoizten** (3); **osagaiak ekoizten** (4); **produktuak ekoizten** (7); **produktuak ekoizten dituen** (3); **transgenikoak ekoizten** (3); **upel ekoizten** (13); **upel ekoizten ditu** (5); **upel gutxiago ekoizten** (3)

---

ekoizgune **1** *iz* ekoizteko gunea.

Ikasketek aldarrikatzen dute ezagutza zientifikoaren produkzioa eta baliotzea ezagutza horren **ekoizgunean** identifika daitezkeen erlazioen azterketa enpirikoaren bidez bakarrik azal daitezkeela modu egokian. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argindar **ekoizgune** bat eta eraikin hau gerizatzen zuten bederatzi zaindari hil zituzten. Berria - Mundua

Beste eraso bat geratu zen petrolio **ekoizgune** honetako atzerritar langileentzako eraikiak izan den bizileku baten aurka. Berria - Mundua

Espainiak eta Frantziak Obiang boteretik haizatzeaz interesik bazuten, Ekuatore Gineako petrolio **ekoizguneen** baliakuntzan esku hartzeko asmoagatik. Berria - Mundua

Iparreko petrolio **ekoizguneetako** segurtasun arduraduna hil dute. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
petrolio ekoizguneetako (4)

---

ekoizketa 1 *iz* ekoiztea.

Estatu bakoitzak eskuratzen ditu horiek, tartean dituela bere ekoizkinen salerosketa, manufakturen **ekoizketa**, industria eta merkatarien aurkikuntzak eta mentura bera ere bai. Andres Urrutia

Ekoizketaren, kontratuen eta esportazioen inguruan dagoen giroa ez da argia; horiek guztiak argitu beharko dira. Berria - Harian

Laborari gazte talde batek gogoetaldi bat abian jarri zuen, partzuergoan eta kalitateko mozkinaren **ekoizketan** oinarritutako zerbait eraikitzeko asmoz. Berria - Ekonomia

Ekoizketako lehen urtarotik, 350.000 esne pinta eraldatuko dituzte gasna egile batek eta haren laguntzaileak, 2,5 kiloko eta kilo bateko gaztak eginda. Berria - Ekonomia

Horretarako, **ekoizketarako** arautegi zorrotz bat hitzartuta daukate, bi ardatz nagusiren inguruan, bata ardiei elikadura sano bat ematea dela eta esne gordina soilik baliatzea dagoela bestea. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Basorako portuko petrolio esportazioak murriztu ziren atzo, gerrillari xiitek petrolio **ekoizketa** eraikuntzen aurka ekiteko asmoa dutela ohartarazi ondoren. Berria - Mundua

Petrolio **ekoizketa** daramaten multinazionalen instalazioen eta hauetan lan egiten dutenen bizilekuen aurkako eraso odoltsuak gertatu eta gero iaz. Berria - Mundua

Okupazio indarren eta hauen laguntzailetzat jotzen dituzten irakiarren aurkako erasoez gain, erresistentzia irakiarrak herrialdeko petrolio **ekoizketarako** eraikuntzen kontrako atentatuak ugaldu ditu azken garaiotan. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
petrolio ekoizketa (4); **petrolio ekoizketarako** (3)

---

ekoizkin *(22 agerraldi, 3 liburu eta 14 artikulutan; ETCn 434 agerraldi: cf* ***produktu*** *1.826 agerraldi, 101 liburu eta 753 artikulutan; ETCn 64.539 agerraldi)* 1 *iz* produktua.

Ezin dugu produkzio intentsiboa erabiliz **ekoizkina** lortu, eta produktu estentsiboa eta ohiturazkoa balitz bezala iragarri. Berria - Ekonomia

Eraikuntza ez badu arkitekto ospetsu batek egin [...] edo berrikuntza lekarketen **ekoizkin** edota lanegitura ezberdinik ez badu, ez da albiste. Pako Aristi

Estatu bakoitzak eskuratzen ditu horiek, tartean dituela bere **ekoizkinen** salerosketa, manufakturen ekoizketa, industria eta merkatarien aurkikuntzak eta mentura bera ere bai. Andres Urrutia

Etxalteetako **ekoizkinak** halaber Baionara jaisten ziren. Herria

Euskal Herriko **ekoizkinak** euskaraz. Herria

Euskal Herriko **ekoizkinen** elkartea. Herria

Israelen 650 **ekoizkinen** jatorria aztertu du, baina ezin izan du argitu Israelen edo lurralde palestinarretan legez kanpoko kokaguneetan ekoiztuak izan diren. Berria - Mundua

Lehengaien «eskasia eta garestitzea» eragin du, eta «bi sosetan» saltzen ditu **ekoizkinak**. Berria - Ekonomia

Ez da uste izan behar **ekoizkin** berri horrek langile gehiagoren beharra piztuko duenik. emendio hori esportazioetan agertzen da: ADA-ko altzairu barrak %-eko 70 gehiago joan dira untziz, artoa, sofrea eta **ekoizkin** kimikoak ere gehiago joan dira. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Nekazari batzuek egiten dituzten etxe gasna **ekoizkinen** eta gasnategi industrialen arteko mozkinen artean ekoizketa mota batentzako lekua badela uste dutelakotz. Berria - Ekonomia

· Behera egin zuen Europako Batasuneko herrialdeetara bidalitako **ekoizkin** kopuruak: %2,3 jaitsi zen. Berria - Ekonomia

Era berean, **ekoizkin**-masa orokorra gehitzen den heinean, irabazi orokorrak hemendik eta handik zabaltzen eta elkarrekin lotzen du. Iñaki Heras

---

ekoizkortasun *iz* produktibitatea.

Hazkunderako indarrak badaudela eta inflazioa apal dagoela ondorioztatuz, Erreserba Federalaren arabera, interes tasak puntu laurden igota «diru politikak erosoa izaten jarraitzen du, eta **ekoizkortasunaren** hazkuntza sendoarekin batera, jarduera ekonomikoari sostengu iraunkorra emango dio». Berria - Ekonomia

---

ekoizle *(563 agerraldi, 25 liburu eta 333 artikulutan; ETCn 12.273 agerraldi)* 1 *iz* ekoizten duen izakia, eskuarki pertsona. ik **produktore 2**.

Zentroko nazioetako kontsumitzaile eta **ekoizleei** onuragarri gertatzen zaien baliabideen birbanaketa masibo baten bektorea. Koro Navarro

Hirietan, nazioarteko merkatariek ezin zuten xehekako salerosketan parte hartu, salerosketa mota hori oso zorrotz arautua baitzegoen, **ekoizleen** interesen alde. Koro Navarro

Ekoizle, transformatzaile eta kontsumitzaile garen aldetik, etorkizunean identifikazio txartela patrikan eraman ordez, txip antzeko bat txertatuko digute guri ere. Edorta Agirre

Ekoizle eta erosle askoz osaturiko merkatua, non enpresak beren lehia-posizioa hobetzeko produktuak desberdintzen saiatzen diren. Iñaki Heras

Igandean, feria eguna, 25 **ekoizle** elgarretaraturik. Aingeru Epaltza

Espiritu honekin ekin zioten [...] buru-langile izan ordez esku-langile izateari, hiritar izan ordez baserritar, bitartekari izan ordez **ekoizle**. Iñaki Mendiguren

Hizketa erritmikoki hautematen dugu gizakiok eta horrela antolatzen, bai **ekoizle**, bai hartzaile garen bezainbatean. Lourdes Oñederra

Gaur egun 95 bat **ekoizlek** parte hartzen dute sare horretan. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aitzitik, oso tentagarria gertatzen zaie gobernuei truke-tasen bilakaera gidatzea, **ekoizle** nazionalen merkatu-kuotak handiago daitezen. Koro Navarro

Elikagai horiek genetikoki eraldatzen segitzeko erabakia hartu beharko lukete **ekoizle** handiek, negozioa ezin utz bailiteke bazterrean. Edorta Agirre

Nekazaritzan PAC erreformaren segida eta transgenikoen onarketa, **ekoizle** handien mesederako. Berria - Euskal Herria

Ekoizle txikiari jeneroa erosteko banatzaile handiek darabilten taktika: [...]. Edorta Agirre

Hegoaldean gaindi ibili da Chiapas-eko **ekoizle** ttipi horien egoararen berri emaiteko. Herria

Afrikar **ekoizleek**, **ekoizle** efizienteak eta merkeak izan arren, beherakada handiak izan dituzte esportazioetan. Iñaki Heras

Islamiar petrolio-eremutik kanpoko prospekzioak geldiarazi zituzten, eta, epe luzera, bazterreko **ekoizleak** ezabatu zituzten. Koro Navarro

Bidezkoa ez den lehentasuna ematen omen die Hegoaldeko **ekoizleei** edota herrialde horretan inbertitzea erabaki dutenei. Koro Navarro

Horien ondoan izanen dira ere kanpotiar **ekoizle** batzu, Charente Maritime-tarik jinik. Herria

Dolarraren erortze kontrolgabeak arazoak ekarriko zizkiela europar eta japoniar **ekoizleei**, haien konkurrentzia-ahalmena ikaragarri jaitsiko zelako. Koro Navarro

Arcelor, munduko bigarren **ekoizlea** eta Europako lehena. Berria - Ekonomia

· Ibaietako algak, berriz, **ekoizle** primarioak dira eta horiek zuhaitzek lurrean egiten duten gauza bera egiten dute: ongarri horiek jaso eta fotosintesiaren bidez materia organiko bihurtzen dira. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dakit gure belaunaldikoak erretiratzen garenean gazteagorik izango den **ekoizle** lanaren arriskuei heldu nahiko dionik. Berria - Kultura

Oso ohikoak dira prezioak ezartzeko **ekoizle** elkarteen arteko akordioak. Iñaki Heras

Arrakasta horrek, **ekoizle**-kartel baten eraginkortasuna baino areago, nazio-estrategia baten egokitasuna adierazten du. Koro Navarro

Praktikan, **ekoizle**-tapoi izatea onartu baitzuen. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bestela esatearren, emakume objektua ume-**ekoizlea** da. Edorta Agirre

Truke libreko egoeran, portugaldar ardo-**ekoizleek** truke-tasa hobea dute ingeles merkatuan beren merkatuan baino. Koro Navarro

Iragan ostegunean sagar **ekoizleak** eta sagardogileak batzartu ziren Hondarribian, ordaindu beharreko prezioa zehazteko. Berria - Ekonomia

Laborantxa **ekoizleen** eta erosleen arteko harremanak zertan diren. Herria

Truke-tasak herrialde petrolio-**ekoizleen** alde aldatu izanak, truke korronteen 360.000 milioi dolar inguruko gainetiko metatua eragin zuen zortzi urtetan. Koro Navarro

Errusia munduko gas **ekoizle** nagusia da. Berria - Mundua

Oihal-**ekoizle** ingelesek, alderantziz, irabazi handiagoa lortzen dute beren produktuan portugaldar merkatuan Ingalaterran baino. Koro Navarro

Ordenagailu **ekoizleen** sektorean %42 hazi da batez besteko produktibitatea. Iñaki Heras

EBren zergak salatu dituzte Txinako poliester **ekoizleek**. Berria - Harian

Interneterako ekipamendu **ekoizlea**. Iñaki Heras

Albisteak behin begiratzeko direla sinestarazi digute, eta horixe da albiste-**ekoizleen** boterea. Pako Aristi

Tarte luze baterako eskarmentua bermatu beharko dute gehigarri **ekoizleek**, populazioaren egoera higieniko-sanitarioa zaintzeko. Edorta Agirre

Azkenaldiotan, AEBetan ideologia-**ekoizle** huts-hutsak diren hainbat institutu zabaldu dira. Txema Ramirez de la Piscina

Zer gertatuko da koka **ekoizle** txikiekin? Berria - Harian

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zelula intsulina-**ekoizleak** giza gorputzean nola eta nondik sortzen diren ez dakigu oraindik. Berria - Gaiak

Kezka handia zegoen atzo Frantziako hegazti haragi **ekoizleen** artean. Berria - Gaiak

Frantziako auzitegi batek Warner Music disko **ekoizlea** eta Fnac saltokia zigortu ditu CDak kopien kontra gehiegi blindatzeagatik. Berria - Gaiak

6 (erlaketa kopulatiboak)

Ekoizle-hornitzaileak segitu nahi badu, banatzaileak baldintzak aldarazi egingo dizkio. Edorta Agirre

7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ardi gasna **ekoizleentzat** on zena, enetako ere kaltegarria ez zela sinestera heldua nintzen. Itxaro Borda

Sagarno eta sagar zuku **ekoizleak** ere badira. Berria - Ekonomia

Makina-erreminta **ekoizleen** laguntzaile bihurtu ginen. Berria - Ekonomia

Koldo Arandia AFM Makina-Erreminta **Ekoizleen** Elkartearen presidente berriak ez zuen aldez aurretiko garaipenik iragarri nahi izan. Berria - Ekonomia

8 (izenondo gisa)

Jiang Zemin presidente ohiak asmatu zuen kontzeptu horren arabera, «talde **ekoizle**, talde kultural eta herritar guztien interesak ordezkatzen ditu alderdiak». Berria - Mundua

Lehengaien eskariaren [...] bilakaera kaltegarriak, epe luzera, espezializazio mota horretatik aldentzera eraman zuen, zein bere neurrian, herri **ekoizle** asko. Koro Navarro

Kontsumitzailearekiko engaiatzen da etxe **ekoizlea** argitasun osoan. Herria

9 ikus-entzunezko emanaldiak ekoizten dituen pertsona. ik **produktore**.

Bertan batu dira euskal aktoreak, gidoigileak, **ekoizleak** eta zuzendari berriak biltzen dituzten elkarteak. Berria - Kultura

Telmo Esnalek eta Asier Altunak zuzendu eta Irusoin eta Alokatu produktorek ekoitzitako filma egitea kostatu denari buelta eman ahal izateko, 40.000 ikuslek joan behar lukete zinemara, Iñaki Gomez Irusoineko **ekoizlearen** arabera. Berria - Harian

IBAIA Euskal Ikus-Entzunezkoen **Ekoizle** Burujabeen Ron Diamond **ekoizleak** independenteei emandako aukeren ondorioko filmak. Berria - Kultura

Ekoizlea: Zine 1 eta Media Films. Berria - Kultura

Val Lewton **ekoizleak** *The curse of the cat people* filma amaitzeko deitu zuen, zuzendaria ez baitzen gai Lewtonek bere ekoizpen merkeetan ezartzen zuen filmaketa epeak betetzeko. Berria - Harian

Han hartu gaitu Eneko Olasagasti **ekoizle** eta zinemagileak. Berria - Kultura

Azken batean euskal idazle, aktore, **ekoizle**, editoreek izango dituzte problema bereziak, hizkuntza minorizatu batean aritzeak dakartzanak. Berria - Euskal Herria

Ikusentzunezkoen **ekoizlea** da. Pako Aristi

Herri Gogoa-Edigsak argitaratu zuen 1975ean, eta Iñaki Beobide izan zuen **ekoizle**. Iñigo Aranbarri

Angel Unzuk **ekoizle** artistiko gisa eginiko lana. Berria - Kultura

Ekoizle eragileak: Luis Goia eta Luis de Val. Berria - Kultura

Ekoizle, zuzendari eta egokitzapen lanak ere bete ditu. Berria - Kultura

60ko hamarkadan, **ekoizleek** bizkarra eman ziotenean, telebistan babestu zen, hainbeste maite zuen askatasunean lan egiten jarraitzeko. Berria - Kultura

IBAIA eta EPE-APV **ekoizle** elkarteek Jaurlaritzarekin sinatutako akordioak ez du balio, Amigoren ustez. Berria - Harian

Oliver Stone zinema-**ekoizleak** esana du: albisteak zuzeneko ekintza-telefilm bilakatu dira, beren klimax eta guzti. Txema Ramirez de la Piscina

Janzki argi bat zeraman, bidaietarako halako traje zabal modako bat, zinema **ekoizle** atzerritarrei batetik bestera bidaian dabiltzala aldizkarietan ikusten zaizkien horien modukoa. Ander Irizar

Eta Rec ekoiztetxeko, Orio produkzioetako eta Tentazioko **ekoizleen** babesarekin. Berria - Harian

Madredeus taldeko Carlos Maria Trindade izan da diskoaren **ekoizlea**. Berria - Kultura

10 (izenondo gisa)

IDOKI sortu zen duela hamar urte, etxe **ekoizle** asko elgarretaratuz. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako ekoizleek (3); **alturako ekoizleen** (3); **alturako ekoizleen erakundeak** (3); **bi ekoizle** (3); **diskoaren ekoizlea** (3); **dute ekoizle** (3); **dute ekoizleek** (8); **ekoizle burujabeen** (7); **ekoizle burujabeen elkarteak** (4); **ekoizle eta** (21); **ekoizle eta film** (3); **ekoizle gisa** (4); **ekoizle handiena** (8); **ekoizle handienak** (3); **ekoizle handienetakoa** (3); **ekoizle nagusia** (4); **ekoizle nagusiak** (3); **ekoizle txikiak** (3); **ekoizlea da** (9); **ekoizlea eta** (5); **ekoizleak ere** (4); **ekoizleak eta** (7); **ekoizleak ez** (3); **ekoizlearen arabera** (3); **ekoizleek eta** (6); **ekoizleen arteko** (3); **ekoizleen elkartea** (3); **ekoizleen elkarteak** (4); **ekoizleen elkarteko** (10); **ekoizleen erakundeak** (5); **ekoizleen eta** (4); **ekoizleen sindikatuak** (3); **ekoizlerik handienak** (7); **entzunezkoen euskal ekoizle** (6); **erreminta ekoizleen** (9); **erreminta ekoizleen elkarteko** (5); **esne ekoizle** (5); **esne ekoizleen** (3); **eta ekoizle** (9); **eta ekoizlea** (4); **eta ekoizleak** (4); **eta ekoizleen** (3); **euskal ekoizle** (6); **euskal ekoizle burujabeen** (6); **euskal ekoizleen** (4); **filmaren ekoizleak** (4); **gero ekoizle** (3); **herrialde ekoizleek** (3); **laugarren petrolio ekoizlea** (3); **makina erreminta ekoizleen** (9); **munduko ekoizle** (7); **petrolio ekoizle** (6); **petrolio ekoizlea** (5); **petrolio ekoizlea da** (3); **petrolio ekoizlearen** (3); **petrolio ekoizleei** (5); **petrolio ekoizleek** (4); **petrolio ekoizleen** (3); **soja ekoizleek** (3); **zinema ekoizle** (6)

---

ekoizpen 1 *iz* ekoiztea; ekoiztearen ondorioa.

Produktibitatea zer da? **Ekoizpenaren** emankortasunaren neurria. Iñaki Heras

Sail berezi bat aurkitzen ahalko duzue janariaz (sasoineko errezetak, mozkinen historia eta bidezko merkataritzatik aurkitzen ahal diren **ekoizpenak**). Herria

Globulu gorrien **ekoizpena** laborategian egiteko asmotan dabiltza mundu osoko hainbat zientzialari talde. Berria - Gaiak

Ikasliburuen **ekoizpenean** ohiko liburuen **ekoizpenean** baino askoz langile gehiagok parte hartzen dute, bost bider gehiago, gutxi gora behera, eta horrek ondorio zuzena izan dezake lanpostu askorengan. Berria - Harian

Animalia transgeniko gehienak **ekoizpena** handitzeko sortuak izan dira, hots, animalia handiagoak edota azkarrago hazten direnak lortzeko. Berria - Gaiak

2001-ean, **ekoizpen** hori kasik doblatuko dute, 80000 pintekin. Herria

"Hemen" elkarteak plazaratu berri duen dokumentu batek dio lantegientzat Euskal Herriaren irudia ona dela beren **ekoizpenak** saltzeko. Herria

Carrefour supermerkatuaren barnean ELB eta ATTAC-eko kideek, OGMak dituzten **ekoizpenen** gainean etiketa handi eta koloretsuak ezarri dituzte. Herria

Ekoizpena: 2.000 milioi kilowatt orduko ekoiztuko lituzke urtean. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Teorian, dibisak, **ekoizpen** berriak -eta hortaz, enplegu berriak- eta teknologia-transferentziak sortzen eta eragiten ditu nazioarteko zuzeneko inbertsioak aldi berean. Koro Navarro

Aurtengo Oscar sarien gaua, **ekoizpen** independenteena izan da maila handi batean. Berria - Kultura

Euskal Telebistak, Europako herri telebista guztien moduan, bere aurrekontu osoaren %5a bideratu beharko luke **ekoizpen** propiora. Berria - Kultura

Era horretan, Kuhnen azterketak **ekoizpen** zientifikoa bera txertatzen du analisi soziologikoan. Askoren artean

Nagusiki **ekoizpen** eolikoa sustatuko du Espainiako hainbat erkidegotan. Berria - Ekonomia

Produktuen **ekoizpen** homogeneoa eta estandarizatua, inolako malgutasunik eta aldakortasunik gabea. Iñaki Heras

Ekoizpen masiboaren eta prezioa baxuen aurka. Berria - Ekonomia

Ez dute kontuan hartzen, ordea, **ekoizpen** osoak izandako hazkundea. Iñaki Heras

Atzerritar kapitalaren falta [...] irrigarria baita oraindik ere eskualde horretan manufaktura-industriak **ekoizpen** osoan betetzen duen lekua. Koro Navarro

Erraz esanda, fonetika artikulatorioak hotsaren **ekoizpen** anatomikoa aztertzen du, eta akustikoak hots ekoitzi horren ezaugarri fisikoak. Lourdes Oñederra

Helburua da gehiegizko **ekoizpen** hori deuseztea eta, ondoren, %4 gutxiago ekoiztea. Berria - Ekonomia

Serieko **ekoizpen** horretatik 100 liberatan saldurik makina bakoitza, diru mordoa eskuratu zuen Pascalek. Jon Muñoz

Esportaziorako **ekoizpen** industriala. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lepo-zuriak ofizinetako langileak dira (alkandora zuridunak, nolabait), eta lepo-urdinak berriz **ekoizpen**-langileak (mahonezko jantzidunak, alegia). Iñaki Heras

Nazioarteko mailan, aldiz, **ekoizpen**-faktoreen aldagaiztasuna eta **ekoizpen**-tekniken desberdintasunak direla-eta, prezioen arteko aldeak ez dira desagertzen. Koro Navarro

Ekoizpen baliabideen jabego pribatua. Iñaki Heras

Serieko **ekoizpen** horretatik 100 liberatan saldurik makina bakoitza, diru mordoa eskuratu zuen Pascalek. Jon Muñoz

Baserritarren arteko gatazka arrunt bat dirudien horretaz iritsi zaigun ahotsa **ekoizpen**-bideen jabearena da, klase ustiatzaileko batena, Batista Bazterretxeren alienazioaren eragile nagusiarena. Anjel Lertxundi

Nazio batek bere **ekoizpen**-ahalmenak behar ditu aurrena garatu, hau da, nazioarteko konkurrentziari heldu aurretik. Koro Navarro

Industria-iraultza zabaldu zenean, eta **ekoizpen**-kapitala indartu, irizpide nagusia ez zen jada espazioa [...] denbora baizik. Koro Navarro

Ekoizpen kostu guzti-guztiak kontuan hartzen badira. Iñaki Heras

Bigarren Mundu Gerraren ondoren enpresa multinazionalek bilbatu dituzten nazioarteko **ekoizpen**-sareak herrialde industrializatuetan zabaldu dira batez ere. Koro Navarro

Gremioek [...] ezin zituzten beren abantailak gorde, **ekoizpen**-egitura guztiz zatikatu baten baitan ez bazen. Koro Navarro

Beste faktore garrantzitsu bat **ekoizpen** prozesu berrietan behar den baliabide banaketa da. Iñaki Heras

Merkataritza-kapitalismo hark, zeina batere oztopo politikorik gabe indartu baitzen, ez zuen artean interes handirik **ekoizpen**-sisteman, gremioen ardurapean jarraitzen baitzuen. Koro Navarro

Multinazionalen moduko enpresek Ekialdean ezarri beharko dituzte **ekoizpen** guneak, epe luzean etekinak lortuko badituzte. Berria - Ekonomia

Ekoizpen sailetik laboratoriora. Juan Garzia

Ekoizpen eredu industriala. Iñaki Heras

Enpresa proiektuak (esaterako produktu berri bat merkaturatzea edo beste **ekoizpen** planta bat irekitzea). Iñaki Heras

Ekoizpen katearen mekanizazio handia eta automatizazio zurruna. Iñaki Heras

Merkataritza, kontsumo eta **ekoizpen** arloetan paradigma berde horren hedapenaren ezaugarritzat har daitezke. Iñaki Heras

Ekoizpen-segmentu ondoena ordainduez jabetzeko lehia gogorra. Koro Navarro

Merkataritza ez da mugatzen gai bitxi edo exotikoak ekartzera eliteek kontsumi ditzaten; aitzitik, **ekoizpen**-aparatuan txertatua dago. Koro Navarro

Zentrotik aldendu ahala, askatasun politikoaren mailak behera egiten du eta zaharkituagoak dira **ekoizpen**-harremanak. Koro Navarro

Kapitalismoaren nagusitasun unibertsal horrek gainditu egiten du maila geopolitikoa, biziki gainditu ere; ez da mugatzen estatu sail batek beste estatu sail bat garaitzera, edo **ekoizpen** modu batek beste bati gaina hartzera. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zientziaren ohiko karakterizazioaren arabera, zientzia ezagutza-**ekoizpen** jarduera da. Askoren artean

Gaur egun ez daude, iraganean bezala, nazio-**ekoizpen** sistemak nazioarteko merkataritzaren bidez loturik. Iñaki Heras

5 ikus-entzunezko emanaldiak egiteko gastuak finantziatzea edo baliabideak ematea.

Durangitis-ak markatzen du euskal liburuen eta diskoen **ekoizpena**, eta baita kazetarien lana ere. Berria - Kultura

Ekoizpenari dagokionez garrantzitsua iruditzen zait beste bi antzoki eta jaialdi bat sartu izana koprodukzioan. Berria - Kultura

Hura animaziozko **ekoizpena** da, alde horretatik oso berezia. Berria - Kultura

Ikus-entzunezko **ekoizpenentzako** maileguak emango ditu Jaurlaritzak. Berria - Kultura

Euskarazko **ekoizpenetan** nekazaritza mundura, mundu bukolikora, gehiegitan jo dugula uste dut. Berria - Kultura

OLBEren azken *Manon* hau denboraldi honetako **ekoizpen** irregularrena dela iruditu zaigu. Berria - Kultura

Ekoizpena: The Israeli Opera. Berria - Kultura

Western handiak eta Bronstonekin egin zituen **ekoizpen** erraldoiak. Berria - Kultura

Bihartik aurrera, X Films **ekoizpen** etxeari esker sortutako hainbat lan ikusi ahal izango dira Ikuspuntua jaialdiaren barruan, Golem Yamaguchiko aretoan. Berria - Kultura

Euskal Herrian zinema **ekoizpena** fruitu ugari ematen ari da; guztia euskal zinemaren barruan sartu behar al da? Berria - Kultura

Opera **ekoizpen** handiak ez dira inoiz Nafarroan ikusi, Nafarroako Jaialdien garaian ez bada. Berria - Kultura

6 ***ekoizpen etxe***

Esan izan da, Juan Huartek Oteizaren filmak aurrera eramateko eratu zuela **ekoizpen etxea**, artistak, garai hartan, interes handia zuelako zineman jarria. Berria - Kultura

Haur eta gazte literatura ardatz harturik Ipupomamua parkea egingo dute Gorringo antzerki taldeak, Tipula **ekoizpen etxeak** eta Bernardo Atxagak bultzaturik. Berria - Kultura

Ekoizpen etxearentzat, sei aktorerekin obra klasiko bat egitea arriskutsua izan daiteke. Berria - Kultura

Ibaia Euskal Herriko Ikus-entzunezko **ekoizpen etxe** independenteen elkarteko kideak etorri ziren topaketara. Berria - Kultura

Aldudeko Oteiza enpresak ere **ekoizpen etxea** handituko baitu, departamenduak 110.000 euro ekartzen dizkio laguntza gisa. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bat ekoizpen (4); **bere ekoizpen** (11); **beste ekoizpen** (7); **da ekoizpen** (7); **dira ekoizpen** (8); **ditu ekoizpen** (4); **dituen ekoizpen** (4); **dituzte ekoizpen** (4); **edo ekoizpen** (6); **ekoizpen ahalmen** (4); **ekoizpen ahalmena** (15); **ekoizpen bat** (5); **ekoizpen baten** (5); **ekoizpen batzu** (7); **ekoizpen bolumen** (4); **ekoizpen eredu** (8); **ekoizpen eta** (20); **ekoizpen faktoreak** (4); **ekoizpen faktoreen** (8); **ekoizpen horiek** (4); **ekoizpen jarduera** (5); **ekoizpen jardueren** (5); **ekoizpen kostu** (6); **ekoizpen kostuak** (5); **ekoizpen kostuen** (4); **ekoizpen lanak** (4); **ekoizpen maila** (4); **ekoizpen modu** (13); **ekoizpen modu kapitalista** (5); **ekoizpen prozesu** (5); **ekoizpen prozesuan** (5); **ekoizpen prozesuen** (5); **ekoizpen sistema** (6); **ekoizpen sistemaren** (4); **ekoizpen transgenikoak** (5); **ekoizpen zentroak** (4); **eta ekoizpen** (41); **etxe ekoizpen** (10); **etxeko ekoizpen** (4); **euskal ekoizpen** (4); **herri ekoizpen** (4); **tokiko ekoizpen** (5)

aurrera ekoizpena (4); **azken ekoizpena** (4); **beren ekoizpena** (4); **da ekoizpena** (8); **du ekoizpena** (10); **eguneko ekoizpena** (7); **ekoizpena avilesera** (4); **ekoizpena bertan** (6); **ekoizpena bertan behera** (5); **ekoizpena da** (6); **ekoizpena erdira** (4); **ekoizpena ere** (6); **ekoizpena eta** (23); **ekoizpena eten** (6); **ekoizpena ez** (4); **ekoizpena handitu** (10); **ekoizpena handituko** (5); **ekoizpena handitzeko** (11); **ekoizpena izan** (5); **ekoizpena milioi** (4); **ekoizpena milioi bat** (4); **ekoizpena murriztea** (4); **ekoizpena murrizten** (4); **ekoizpena murriztu** (11); **ekoizpena murriztuko** (4); **esne ekoizpena** (4); **eta ekoizpena** (27); **industria ekoizpena** (6); **ondasunen ekoizpena** (4); **petrolio ekoizpena** (22); **petrolioaren ekoizpena** (5)

bere ekoizpenaren (4); **beren ekoizpenak** (5); **ekoizpenak eta** (4); **ekoizpenaren eta** (7); **ekoizpenaren parte** (4); **ekoizpenaren zati** (10); **ekoizpenaren zati bat** (9); **ekoizpenari dagokionez** (4); **ekoizpenean eta** (7); **ekoizpenean parte** (5); **ekoizpenean parte hartu** (4); **eta ekoizpenaren** (8); **etxe ekoizpenak** (5); **industria ekoizpenaren** (4); **kalitateko ekoizpenak** (4); **munduko ekoizpenaren** (6); **munduko ekoizpenean** (6); **petrolio ekoizpenaren** (5); **tokiko ekoizpenak** (4); **tokiko ekoizpenen** (6)

---

ekoizpentegi *iz ipar* ekoizpen etxea.

-Ortziralean, Maulen, goizeko 10etan herri **ekoizpentegian**, Gabi Etchebarne-ren "Paroles de bergers" liburuaren aurkezpena. Herria

Mauleko Herri **Ekoizpentegian** aurkeztua izan da iragan astean Angelique Fullin-en liburu elebiduna. Herria

Aurkezpena uztailaren 30ean, 11etan, Mauleko herri- **ekoizpentegian**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

herri ekoizpentegian (7); **mauleko herri ekoizpentegian** (5)

---

ekoizte *iz* ematea, sortzea edo egitea, eskuarki ekonomia jardueraren bitartez edo horren ikuspegitik.

Bokalikoak dira trantsizio horren egitura akustiko eta **ekoizte** artikulatorioa, baita hiztunaren oharmena ere. Lourdes Oñederra

Ossau-Iratysormarkarako bidean ezarriak izan diren **ekoizte**-baldintza berrien dekretua izenpetu du Laborantxako minixtroak. Herria

Nahiz eta gehiago birziklatu, zabor **ekoizte** tasak etengabe igotzen ari dira. Berria - Euskal Herria

Ekoizte arautegi zorrotza. Berria - Ekonomia

Bost sail nagusitan banatzen dira azokara aurkeztutako lanak, filma egiteko lanak zein fasetan dauden aintzat hartuta: guztiz amaitutakoak; kontzeptuan daudenak (Supertramps, esate baterako); garatze bidean daudenak (Glup, adibidez); postprodukzioan daudenak; eta **ekoizte** lanetan daudenak. Berria - Kultura

---

ekoiztetxe *iz* ekoizpen etxea, eskuarki ikus-entzunezko emanaldiena.

25.367 ikusleko kopuruarekin, **ekoiztetxeen** aurreikuspenak betetzen ari dira, baina filma ez da biltzen ari espero zuten arrakasta herrialde eta areto guztietan. Berria - Harian

Film baterako eszenatokien bila zebilen Mendebaldeko Alemaniako **ekoiztetxe** batek fabrika hura ikusi eta bertan filmatzeko baimena lortu zuen. Iban Zaldua

Orain **ekoiztetxe** batean ari naiz lanean, telebistarako. Berria - Kultura

Euskal **ekoiztetxeek** telebistarako ekoitziriko filmetan parte hartzea aztertuko du telebistak. Berria - Kultura

Azaroaren amaieran bukatzen da TVE1ek eta Asegarceren Bainet **ekoiztetxeak** duten akordioa. Berria - Kirola

Askatu zutenean, alta, bere bezero ohien kontrako salaketak jarri zituen, tartean Steven Spielberg zinema zuzendariaren Dream Works SKG **ekoiztetxearen** kontra. Berria - Mundua

Ibaia Euskal Herriko Ikus-entzunezko **Ekoiztetxe** Burujabeen Elkarteak. Berria - Kultura

Walt eta Roy anaiek 1923ko urriaren 16an sortu zuten marrazki bizidunen **ekoiztetxe** txikia. Berria - Ekonomia

Ameriketako Estatu Batuetako **ekoiztetxe** handiak ere DVDak hain merke saltzearen aurka azaldu dira. Berria - Kultura

Pixar animazio **ekoiztetxeko** bi ordezkari, Carlos Baena eta Rodrigo Blas, konpainiako azken pelikulari buruz mintzatuko dira. Berria - Kultura

Andrea Creaws Frantziako kolektiboak eta Consonni Bilboko arte **ekoiztetxeak** antolatuta, arropa alternatiboa egiteko tailerra hasiko da bihar, Bilboko Erribera Azokan. Berria - Kultura

---

ekoiztu, ekoiz, ekoizten **1** du *ad* ekoitzi.

Printzipio honen bidez determinatzen da ardoa Frantzian eta Portugalen egin behar dela, laborea Ameriketan eta Polonian, eta burdindegiko gauzak eta beste ondasunak Ingalaterran **ekoiztu** behar direla. Iñaki Heras

LPEEko kideek egunean 28 milioi petrolio upel **ekoiztu** ahal izango dituzte. Berria - Ekonomia

Beasaingo konpainiak **ekoiztuko** ditu bagoiak, eta kontsortziokide dituen Bombardierrek eta Siemensek trakzio sistemak. Berria - Ekonomia

Ez zitzaidan bururatzen ezen, [...] **ekoizturiko** nikelak Italia faxistaren eta Hitlerren Alemaniaren babeskietan eta jaurtigailuetan amaituko zuela oso-osorik. Juan Garzia

Soberakin horiek beste unitate batzuek **ekoizturiko** ondasunekin truka daitezke. Koro Navarro

Oinarrizko industriarekin hasi, eta kontsumorako produktuak **ekoizten** dituzten enpresetaraino. Iñaki Heras

Ez baitira gai izan tokiko eskarira egokitutako ondasunak **ekoizteko**. Koro Navarro

Horrela, 2,5 MW **ekoizteko** gai ziren. Pello Salaburu

Elikagaien eroate, pilatze eta partitze izeneko etapa antzu eta garesti hauetan [...] ez da ezer ere **ekoizten**. Edorta Agirre

Ez da deus existitzen, non ez duen haren izaerak zerbait ondorio **ekoizten**. Piarres Xarriton

Prezipitazio deituko diogu lurzoruan bertan **ekoiztuko** zaigun ihintzari, intzigar edo izotz zuriari ere. Pello Zabala

Latino ez latino, azkenean denontzat puntuzkoa Atenas da, Erromak ez du kultura propiorik **ekoiztu**. Joxe Azurmendi

Orduan, H&K aholkularitzak mundu osoa ikaratu zuen gertaera **ekoiztu** zuen (*asmatu*, alegia). Txema Ramirez de la Piscina

2 (ik **ekoitzi 3**)

Animazioa alde batera utzita 'Aupa Etxebeste!' euskaraz **ekoiztu** den film luze bakarra da azken 13 urteetan. Berria - Kultura

Gerla hartaz aski liburu eta film **ekoiztu** zituztela. Eneko Bidegain

Euskal Kultur Erakundeak eta Usurbilgo Elhuyar Fundazioak elgarrekin **ekoiztu** dute *Euskal Herriko Aurpegiak* DVD-a. *Ilargiaren sekretua* Hik Hasi-k **ekoiztutako** filma San Agustin Kultur Gunean. Herria

Brasilen iaz ikusi filmen %22 bertan **ekoiztuak** izan ziren. Berria - Kultura

3 (era buruta izenondo gisa)

Hots **ekoiztua** izaki fisikotzat hartuta. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekoiztu ahal (9); **ekoiztu ahal izan** (4); **ekoiztu ahal izango** (3); **ekoiztu behar** (5); **ekoiztu den** (5); **ekoiztu dituen** (3); **ekoiztuak izan** (3)

---

ekolalia *iz* hizkuntza nahasmendua, entzun den esaldia automatikoki errepikatzean datzana.

Ekolaliak hotsak izozten ditu, denbora geldiarazten du, "gorputz arrotz" edo oihartzun gisa gordetzen ditu gogamenean estimuluak, inplanteak balira bezala, arrotz-bizitzari uko egin gabe. Xabier Olarra

Tik konbultsiboak, besteren hitz edo egintzak nahi gabe imitatzea edo errepikatzea (**ekolalia** eta ekopraxia) eta madarikazio nahiz zantarkeriak gogoz bestera eta konpultsiboki botatzea (koprolalia). Xabier Olarra

Umea zela, **ekolalia** nabaria zuen; beste edonork esandako azken hitza errepikatzen zuen, edo azken biak. Xabier Olarra

Beste batzuetan, berriz, autismorik sakonenera itzuli, eta automata batek bezala erantzungo zizun, **ekolaliaz**, batere erantzuten bazizun. Xabier Olarra

Rain Manen antzezpena, alde hartatik, playback huts-hutsa ote zen, imitazio edo **ekolalia** hutsa, ala filmaren esanahiaren zentzua zuen berekin? Xabier Olarra

---

ekolinguistika *iz* hizkuntzalaritza ekologiaren ikuspuntutik atertzen duen diziplina.

Ez dakit, bada: ilargiarekin eta elementu naturalekin egiten diren interpretazioak; pixka bat Samarrek-eta aipatzen dutena da, **ekolinguistika**. Berria - Euskal Herria

---

ekologia 1 *iz* izaki bizidunak bizi diren inguruneak eta izakion ingurunearekiko harremana aztertzen dituen zientzia.

Oso garrantzitsua da mundu mailako III. Gizarte Foroan (MFG) "informazioaren **ekologia"** deitu zaien deskontaminazio prozesuen aldeko apustua egitea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizartea, lurraldea, ekosistema eta **ekologia** izan ziren azterketaren lau zutabeak. Berria - Euskal Herria

Del Valek Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren analisi kritikoa eta **ekologian** eta iraunkortasunean oinarritutako proposamen alternatiboa egin du liburuan. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko elkartasunetik hasi eta laborantza mundua, ingurumena eta **ekologiak** ere ukanen dute beren tartea. Berria - Kultura

Ekologiaren alorreko nobel saritzat jotzen da Goldman saria. Edurne Elizondo

Nola ez nuen atsegin izango, Rezolako tximiniak [...] liluraturik banindukan eta hura ume-umetatik imitatu nahi izan banuen? Bai baitira munduan **ekologia** baino premia handiagoko beharrak. Joan Mari Irigoien

Han, gizarte gaiekiko eta **ekologiarekiko** arduragabeenak izan diren enpresa multinazionalak saritu zituzten. Berria - Ekonomia

Oihana Izagirre eta Ohiane Lakarrak irabazi dute CAF-Elhuyar zientzia dibulgazioko X.edizioko lehen saria, ibaien **ekologiari** buruzko *Meandroetako mina* izeneko lanarengatik. Berria - Gaiak

Duda-mudan jartzen dira zientziaren eta teknikaren abantailak, **ekologia** goraipatzen da, kapitalismoa maiseatzen. Karlos Zabala

2 (izenondoekin)

Ezin da jasan mitologia judu-kristaua, eta Polinesiako edo aurrehistoriako mitologiak debozioz mires/goresten dira; progresoa eta razionalitatea esijitzen da gogor, eta **ekologia** kuasimistiko bat. Joxe Azurmendi

Jean Zin idazle eta **ekologia** politikoko militanteak bere ikuspegia badu. Berria - Euskal Herria

Zure jarrera funtsean politikoa baino gehiago beste zerbait delako: **ekologia** sozial minimo bat gutxiengoen begirune sakratua errebindikatzen duena, protesta etiko bat inperialismo politiko eta genozidio kultural espainolaren aurka. Joxe Azurmendi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **ekologiko**.

Marxek azpimarratu zuen kapitalismoa eta **ekologia**-orekaren eramangarritasuna bateraezinak zirela. Iñaki Heras

Alde batetik, **ekologia** zientziaren mundutik zetozen sektoreak daude. Berria - Gaiak

Gizarte-klausula, **ekologia**-arauak eta jabetza intelektuala. Koro Navarro

Ekologi kostuak kontabilizatzeke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bizi-kalitateak, ordea [...] gizarte bateko norbanakoen harreman esparrua osatzen duten gizarte, **ekologi** eta, besteak beste, kultur alderdiak jasotzen ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zenbait **ekologia** ikuspegitik, **ekologia** arazoa sistema kapitalistaren ezinbesteko ondoriotzat hartzen da. Iñaki Heras

Maizenik garapen ikuspegi hau **ekologia** auziarekin lotu den arren, baditu halaber beste inplikazio garrantzitsuak. Iñaki Heras

Frantziako **Ekologia** ministro Nelly Olinek atzo azaldu zuen jendaurrean hartz arreen inguruan berak zuzentzen duen erakundeak zer asmo duen apiriletik uztaila bitarte. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizarte **ekologiaren** aldeko indarrak berriro batzea ahalbidetuko duen hitzarmen politikak oinarrian itun soziala behar du. Berria - Euskal Herria

Ortziraletik igandera, Mugerren, agro-**ekologiaren** egunak, Pierre Rabhi-rekin. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agro ekologiaren (3); **ekologia eta** (9); **ekologia izan** (3); **ekologia ministro** (5); **ekologia ministro nelly** (4); **ekologia ministroak** (4); **ekologia taldeak** (3); **ekologiaren eta** (4); **ekologiari buruzko** (3); **ekonomia eta ekologia** (6); **eta ekologia** (21); **eta ekologiaren** (3); **frantziako ekologia** (7); **frantziako ekologia ministro** (4); **frantziako ekologia ministroak** (3); **txingudi ekologia** (3); **txingudi ekologia taldeak** (3); **zein ekologi** (3)

---

ekologiko 1 *izond* ekologiarena, ekologiari dagokiona.

Programa horiek arazo **ekologikoen** ikuspegi bertikal eta sektorial batean oinarrituta zeuden. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Uraren Legean zerga **ekologikoa** ezartzea erabaki du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Biosferaren oreka **ekologikoaren** arazo itzelak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Groenlandiako oreka **ekologiko** hauskorra, klimaren aldaketa, gaien gehiegizko ustiaketa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Naturaren gainean eragiten dugun inpaktua eta egungo defizit **ekologikoari** egiten diogun ekarpen tristea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Inpaktu **ekologikoa** bat dator bizimodu batzuei eutsi ahal izateko kontsumitzen dugun natura kantitatearekin. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hondamendiak eragindako kalte **ekologikoak**. Berria - Euskal Herria

Krisi **ekologikoa** kezka etengabea da esparru guztietan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1996an zerga **ekologikoa** ez ordaintzea lortu zuen. Berria - Euskal Herria

Delitu **ekologikoa** leporatzen diete. Berria - Euskal Herria

Prozesu ekonomikoei loturiko kostu errealak, hala **ekologikoak** nola sozialak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hondatze **ekologiko** global horrek jarraitu egingo du garapen eredu konbentzionala baliatzen segituz gero. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Europako ibaiek egoera **ekologiko** onean egon behar dute 2015. urterako. Berria - Gaiak

Gaur egungo muga **ekologikoak** ezinezko bihurtzen du garapen bidean diren herrialdeen industrializaziorako eredua. Iñaki Heras

Plaiaundi Parke **Ekologikoaren** Ekoetxean. Berria - Euskal Herria

«Errefuxiatu **ekologikoak** dira», azaldu du Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Elikadurarako Eskubidearen arduradun Jean Zieglerrek. Berria - Gaiak

Hiriaren eta eraikuntzen alderdi **ekologiko** eta energetikoak kontuan hartuz. Berria - Kultura

2 ekologiaren arauen araberakoa; ingurumena errespetatzen duena.

Zezen-plazan ibilgailu **ekologikoen** erakusketa eginen dute. Berria - Euskal Herria

Produktu **ekologikoak** egon badaude, baina oso garestiak dira. Berria - Gaiak

Zuk ardi gasna **ekologikoa** egiten duzu, zer erran nahi du horrek? Herria

Aurretik, bertsolariak eta suziri **ekologikoak** eta herri kirolak izan ziren. Karlos Linazasoro

Pentsu **ekologikoa** saltzeko kooperatiba abian da Olaberrian. Berria - Ekonomia

Lurra da berez material **ekologikoetako** bat. Berria - Gaiak

Euskal Herri osoko lehendabiziko azoka erabat **ekologikoa** izango da. Berria - Euskal Herria

Batez ere Herman E. Dalyk -ekonomia **ekologikoaren** ordezkarietako batek- garapen iraunkor kontzeptua edukiz hornitzeko egin dituen ekarpenetan oinarrituko gara. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Azken urteotan ezarri diren ingurugiro arauak, estandarrak eta ziurtagiriak, edota produkzio eta kontsumo biologiko eta **ekologikoaren** hedapena. Iñaki Heras

Oinaztarri batek -oinaztarri artifizial baina **ekologiko** batek, dudarik gabe- zerua bitan ebaki zuen. Karlos Linazasoro

Postu horietan nekazaritza **ekologikoko** elikagaiak egongo dira, baita nekazaritza **ekologikorako** produktuak ere. Berria - Euskal Herria

San Markoseko zabortegiak 2009 arte irautea ez da «ez demokratikoa, ez **ekologikoa**». Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo ekologikoak (4); **aztarna ekologikoa** (13); **aztarna ekologikoaren** (4); **balio ekologiko** (4); **defizit ekologikoa** (4); **delitu ekologikoa** (12); **delitu ekologikoa egin** (3); **ekologiko bat** (6); **ekologiko edo** (3); **ekologiko eta** (16); **ekologiko handia** (5); **ekologikoa da** (3); **ekologikoa egin** (3); **ekologikoa eta** (6); **ekologikoa ez** (3); **ekologikoa izango** (3); **ekologikoa izatea** (3); **ekologikoa oso** (3); **ekologikoari buruzko** (3); **ekologikorik eragin** (3); **emari ekologikoari** (5); **eragin ekologiko** (3); **eta ekologiko** (3); **eta ekologikoa** (3); **eta ekologikoak** (5); **gaitasun ekologikoa** (3); **hondamendi ekologiko** (3); **hondamendi ekologikoa** (8); **hondamendi ekologikoaren** (3); **ikuspegi ekologikoa** (3); **inpaktu ekologikoa** (4); **kalte ekologiko** (6); **kalte ekologiko handia** (3); **kalte ekologikoa** (3); **kalte ekologikoak** (6); **kalte ekologikorik** (3); **kalte ekologikorik eragin** (3); **nekazaritza ekologikoa** (5); **nekazaritza ekologikoaren** (3); **nekazaritza ekologikoko** (3); **oreka ekologikoa** (4); **zerga ekologikoa** (7)

---

ekologikodun *izond* ekologikokoa.

Merkatuak ez dio laguntzen bizi ziklo integrala kontuan hartzen duten diseinu **ekologikodun** produktuei, askotan produktu garestiagoak baitira. Berria - Euskal Herria

---

ekologikoki *adlag* era ekologikoan; ekologiaren aldetik.

Aspalditik da ezaguna bete beharreko agenda: sozialki zuzena, **ekologikoki** bateragarria eta ekonomikoki bideragarria den garapena erdiestea. Iñaki Heras

Giza eskubideak, **ekologikoki** osasungarria den ingurunea, garapen iraunkorra eta bakea elkarren mendekoak eta bereiztezinak dira. Berria - Kultura

Garbi ikus dezakegu gutako bakoitzari dagokigun lur **ekologikoki** produktiboa izugarri murriztu dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekologikoki, hegazkinarekin alderatuz, trena askoz ere hobea da.AHTk sozialki eta **ekologikoki** izugarrizko kalteak sortzeaz gain, ekonomikoki ere Euskal Herriari hipoteka handia sortuko lioke. Berria - Gaiak

Herria soziologikoki, paisajistikoki, **ekologikoki**... aldatuko dela diote, eta horrelako erabaki bat hartu baino lehen herritarren iritzia entzuteko eskatu diote Udalari. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekologikoki osasuntsu (3); **ekologikoki produktiboa** (3); **eta ekologikoki** (6); **eta ekologikoki osasuntsu** (3); **osasungarri eta ekologikoki** (3)

---

ekologismo *iz* ingurumenaren aldeko eta ekologia arazoen konpobiderako higikundea.

Ekologia zientziaren ezagutza aplikarazi nahi duen mugimendu bakezalea da **ekologismoa**. Berria - Gaiak

Orain, animalia asko desagertu direnean, lur azalean urte askotan egin diren kalteak konpon ezinak diren une honetan, itsasoko arrain mota asko betiko galdu dituguneau, orain, mundua **ekologismora** itzuli da eta ingurumenaren zaindari egin. Pello Salaburu

Beren kezka-iturri nagusia **ekologismoa** da, zentzu zabalean ulertuta: gure ingurumen kultural eta fisikoa kutsatzen duten merkataritza-indarren aurka borrokatzea dugu xede. Txema Ramirez de la Piscina

Ezker soziala, arrazismoaren inguruan, edo eta **ekologismoaren** inguruan. Berria - Euskal Herria

Borroka horretan, Itoizko Koordinakundea eta *Itoitzekin Elkartasuna* taldea, biak dira esanguratsuak, biek ematen digute Itoizko urtegiaren arazoaren neurria, eta biek markatzen dituzte Euskal Herriko **ekologismoaren** lan egiteko bi lerro. Edurne Elizondo

Hortan ikusiz ere **ekologismoa**, emaztearen aldakuntza, euskararena, inmigrazioa eta besterik oraino. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da ekologismoa (5)

---

ekologista **1** *izond* ekologismoarena, ekologismoari dagokiona; ekologismoaren aldekoa.

Iritzi publikoak, oro har, ondo hartu du erakunde **ekologisten** lana. Berria - Gaiak

Greenpeace nazioarteko erakunde **ekologistaren** arabera. Berria - Gaiak

Mota askotako talde **ekologista**, antinuklear eta antimilitaristak. Iban Zaldua

Olaf Merz oso ezaguna zen Alemanian, batez ere talde **ekologista** erradikalenetan militatzen ibiltzeagatik. Hasier Etxeberria

Talde **ekologistaren** jarrerak, ordea, harridura eta nolabaiteko etsipena eragin zuen solidarioen artean. Edurne Elizondo

Hainbat elkarte **ekologistak** ez dute begi onez ikusten Dakar rallya. Berria - Kirola

Ideologia **ekologistek** alde hau desgogora, gordeka bezala eta beste erremediorik ez dagoelako bakarrik bakarrik aitortzen dute. Xabier Amuriza

Latinoamerikako mugimendu **ekologistaren** sustatzaile nagusia. Berria - Gaiak

Itoizko proiektuaren aurretik, Lemoizko zentral nuklearraren eta Leitzarango autobiaren kontrakoak izan dira Euskal Herriko mugimendu **ekologistaren** borroka nagusiak. Edurne Elizondo

«Euskal ezker **ekologistak**, feministak eta antikapitalistak» oinarri sendoak dituela gaineratu zuen. Berria - Harian

Joera **ekologistak** onartezin ikusten ditu krisiaren irtenbide gisa bai ekoizpen ahalmena eta baita kontsumoa areagotzea ere. Iñaki Heras

Borroka **ekologista**, baina, bestelako errebindikazioei lotuta joan da leku eta urte askoan; borroka antimilitaristari lotuta, esaterako. Berria - Gaiak

Mendearen argia itzaltzear zela, eztabaida bizia sortu zen elikadura transgenikoekin: nola onartu, zioten beren burua **ekologistatzat** hartzen zuten talde batzuek, horrela manipulatutako barazkiak jatea? Pello Salaburu

Sebastien Briat ekintzaile **ekologistaren** heriotza nola gertatu zen argitzeko urrats juridiko gehiago egiteko eskatu zuten, atzo, Frantziako energia atomikoaren aurkarkoek. Berria - Gaiak

Aldarrikapen **ekologistaren** bat izanen ote zen hura? Karlos Linazasoro

Antonio albaitari **ekologista** da hirugarren ipuineko protagonista. Markos Zapiain

Norvegiaren moduko «herrialde **ekologista**» batean harrapatutako arrain txikiak botatzea «delitua» dela nabarmendu du OPPAOko gerenteak: «Guzti-guztia aprobetxatzen dute, legeak hala aginduta». Berria - Ekonomia

• **2** *iz* ekologista den pertsona.

Ekologistek aurkeztutako alternatibak aztertu ere ez zituzten egin agintariek. Edurne Elizondo

Mendia eror daitekeela salatu dute **ekologistek**. Berria - Kultura

Ekologisten festa batean ezagutu omen zuen Scott. Joxemari Iturralde

Ekologisten arrangurak entzun eta auzoko batek hauxe esan zuen: "Otso bat akabatzeagatik ez dio ardura". Gotzon Garate

Areva Frantziako enpresa nuklear publikoak eta BNFL Erresuma Batuko Erregai Nuklearren Konpainiak **ekologisten** aurka jarritako salaketak aintzat hartu ditu auzitegiak. Berria - Gaiak

Hala desarrollistak nola **ekologistak** bere diskurtsoak berregituratu beharrean izan dira, elkarrekin moldatu ahal izatearren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baleen arrantza «krudela» dela salatu dute **ekologistek**. Berria - Gaiak

Alemaniako Errepublika Federalaren ongizate estatua goitik behera aldatzeko egitasmoa plazaratu du sozialdemokratek eta **ekologistek** osaturiko gobernu gorri-berdeak. Berria - Mundua

Nafarroako **ekologistentzat** Itoizko urtegiaren kontrakoa izan da borroka nagusia. Edurne Elizondo

Wangari Maathai **ekologista** kenyarrak jaso du Bakearen Nobela. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan)

Kanaria uharteetako biztanle askok eta **ekologista** taldeek ez dute begi onez ikusten esku hartzea. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekintzaile ekologista (3); **ekologista askok** (3); **ekologista bat** (6); **ekologista eta** (11); **elkarte ekologista** (3); **erakunde ekologista** (10); **eta ekologista** (4); **eta talde ekologista** (3); **greenpeace erakunde ekologista** (3); **herriko talde ekologista** (3); **mugimendu ekologista** (7); **talde ekologista** (19)

da ekologistak (4); **dira ekologistak** (3); **du ekologistak** (8); **du ekologistak martxan** (5); **du talde ekologistak** (5); **dute ekologistak** (3); **dute ekologistak martxan** (3); **eguzki talde ekologistak** (13); **ekologistak ere** (4); **ekologistak eta** (13); **ekologistak ez** (6); **ekologistak martxan** (86); **ekologistak martxan ek** (3); **ekologistak martxan elkarteak** (4); **ekologistak martxan eta** (13); **ekologistak martxan taldea** (3); **ekologistak martxan taldeak** (15); **ekologistak martxan taldeek** (3); **ekologistak martxan taldeko** (14); **ekologistak martxanek** (4); **elkarte ekologistak** (5); **erakunde ekologistak** (25); **eta ekologistak** (14); **eta ekologistak martxan** (8); **greenpeace erakunde ekologistak** (15); **greenpeace eta ekologistak** (4); **greenpeace talde ekologistak** (9); **gurelur talde ekologistak** (3); **hainbat talde ekologistak** (6); **iparraldeko ekologistak** (3); **mugimendu ekologistak** (5); **nafarroako ekologistak** (3); **talde ekologistak** (73); **talde ekologistak ere** (3); **talde ekologistak eta** (5); **zenbait talde ekologistak** (3); **ziren ekologistak** (3); **zuen ekologistak** (4); **zuen ekologistak martxan** (3); **zuen talde ekologistak** (4)

burua ekologistatzat (3); **eguzki talde ekologistako** (4); **eguzki talde ekologistaren** (5); **ekologistako kideak** (3); **ekologistako kideek** (9); **ekologistaren arabera** (8); **ekologistaren bat** (3); **ekologistaren borroka** (3); **ekologistaren esanetan** (3); **elkarte ekologistako** (3); **erakunde ekologistako** (10); **erakunde ekologistako kideek** (3); **erakunde ekologistaren** (13); **erakunde ekologistaren arabera** (5); **greenpeace erakunde ekologistako** (7); **greenpeace erakunde ekologistaren** (6); **greenpeace talde ekologistako** (6); **herriko mugimendu ekologistaren** (3); **mugimendu ekologistaren** (10); **mugimendu ekologistaren borroka** (3); **talde ekologistako** (20); **talde ekologistako kideek** (6); **talde ekologistaren** (12)

diote ekologistek (10); **du ekologisten** (3); **dute ekologistek** (38); **dute talde ekologistek** (5); **ekologistek argi** (3); **ekologistek ere** (4); **ekologistek eta** (18); **ekologistek ez** (3); **ekologistek salatu** (10); **ekologistek salatu dutenez** (7); **ekologisten aburuz** (4); **ekologisten arabera** (26); **ekologisten artean** (6); **ekologisten esanetan** (4); **ekologisten eta** (8); **ekologisten ustez** (5); **erakunde ekologistek** (14); **erakunde ekologisten** (4); **eskatu dute ekologistek** (4); **eta ekologistek** (7); **eta ekologisten** (4); **eta talde ekologistek** (5); **mugimendu ekologistek** (3); **ohartarazi dute ekologistek** (4); **salatu dute ekologistek** (15); **talde ekologistek** (40); **talde ekologistek eta** (6); **talde ekologistek salatu** (3); **talde ekologistekin** (3); **talde ekologisten** (13); **zuten ekologistek** (6)

---

ekologo *iz* ekologian aditua dena.

Ekologoek ekosistemak nonahi eta etengabe galtzen ari direla besterik ez dute ikusten; ekonomilariek, aldiz, azken 30 urteotan munduko Barne Produktu Gordina (BPG) asko hazi dela, diru-adierazleentzako baino ez baitute begirik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

«Kume arrei esne gehiago eta proteina gehiagokoa ematen diete [oreinek]», azaldu dio Berriari Tomas Landete **ekologoak**. Berria - Gaiak

Eskarmentu handiko **ekologoak** ziren asko. Berria - Gaiak

---

ekolojia ik **ekologia**.

---

ekoministra *iz* ekologia ministra.

Espainiako Erregearen ama zenaren omenetan malkoak isurtzera, edo Voynet, **Ekoministra** frantziarraren hanka-sartze petroliferoak goxatzera emanda daude azkenaldion. Hasier Etxeberria

---

ekonekazaritza *iz* nekazaritza ekologikoa.

Ekonekazaritza hitza ari da emeki emeki sartzen hegoaldekoen hiztegian. Herria

Ekonekazaritza da ere Bergaran finkatua den egituraketa berri bat: Euskadiko nekazaritza ekologikoaren federazionearen izena da, bere baitan hiru elkarte biltzen dituena: Biolur-Gipuzkoa, Ekolur-Bizkaia eta Arabako Bionekazaritza. Herria

---

ekonoma ik **ekonomo**.

---

ekonomato *(ETCn **138** agerraldi; orobat **ekonomatu** ETCn **39** agerraldi) iz* enpresa eta erakunde batzuek antolatzen duten denda modukoa, non langile edo kideek hainbat salgai eros baititzakete prezio apalagoetan.

Fabrika batzuek beren langileentzako dendak ere badituzte, **ekonomatoak**. Jon Maia

Barnetegi hartako **ekonomatoan** saltzen ziguten salda pasteurizatu hura ez zegoenez edaterik, esnekia behintzat hobeto hartzen nuen. Koldo Izagirre

Ekonomatoan bi kafe hartu ondoren. Jokin Urain

Portuko **ekonomatoan** hartzen genituen pastis eta *demi-bier* haiek norekin hartzen dituzu orain? Harkaitz Cano

Batzuetan Manurekin gogoratzen zen, **ekonomatoko** kantinan hartzen zituzten demi-bier haiekin. Harkaitz Cano

Afal ordua baino lehentxeago bueltatu gara **ekonomatora**. Jokin Urain

Ekonomatoko ilara amaitu eta gure txanda zen. Lander Garro

Jendea bazkaltzeko zain dagoenean arrimatu gara enegarren aldiz **ekonomatoko** leihatilara. Jokin Urain

---

ekonomatu ik **ekonomato**.

---

ekonometria *iz* zientzia aplikatua, estatistikaren metodoak erabiltzen dituena hainbat arazo ekonomikori aurre egiteko.

Zer dela eta esan Pettyren asmaketak Neumannen **ekonometriaren** jarraipen zuzena direla? Xabier Arregi

---

ekonomi ik **ekonomia 3**.

---

ekonomia 1 *iz* gizartean, ondasunen ekoizte, banatze eta erabiltzeari buruzko gertakariak aztertzen dituen zientzia; ondasunen kudeaketa zuhurra.

Ekonomia urritasunaren edo murrizpenen zientzia dela esan daiteke nolabait. Iñaki Heras

Ekonomia, jakintza esparru gisa, oso da zabala. Iñaki Heras

Ekonomia mundu mailakoa da, ez eskualde edo herri mailakoa bakarrik. Pello Salaburu

Adam Smith izango da, seguruenik, autore aipatuena liberalen artean eta harentzat nazioen aberastasuna aztertzea da **ekonomiaren** helburua. Iñaki Heras

Marxistentzat, berriz, **ekonomiak** produkzioa gidatzen duten giza erlazioak aztertzen ditu. Iñaki Heras

Brasilgo **ekonomia** %4,2 hazi da urteko lehen seihilekoan. Berria - Ekonomia

Ongizatearen **ekonomiaren** aitzindaria izan zen Arthur Pigou Nobel sariak zioen bezala, bere zerbitzariarekin ezkontzen denak ere adierazle horren beherakadari, eta beraz **ekonomiaren** hazkunde ofizialari, bere ekarpena egiten dio. Iñaki Heras

Albiste bihurtu nahi badute, **ekonomiako** orrietan leukake bere tokia, industri-jardunen ondoan, etxebizitzen prezioen eta burtsako indizeen gorabeheretan beti goraka ageri diren zifren artean. Pako Aristi

Gutariko gehienak, Bercy edo Moncloako edozein **ekonomiako** ministro bezain erraz mintza gintezkeen, globoak globalizatuz eta auzoarentzat partikulazki, aurrekontu epaiketa drastikoak gomendatuz adibidez. Itxaro Borda

Ekonomiaren nazioarteratze prozesua inoizko mailarik gorenera iritsi da, zenbatekoan ez ezik, hedapen eta sakontasunean ere. Iñaki Heras

Ekonomian oinarritu merkatuaren legeen mekanismoak barneratuak genituen ordukoz. Itxaro Borda

Industria ingeniari titulua atera eta **ekonomian** lizentziatu zen. Berria - Kultura

Monarkia batzuetan, **ekonomiazko** merkataritzan diharduten estatuei kalte egiteko legeak egin izan dira. Iñaki Iñurrieta

Espazio hori hierarkizatua zegoen, ez ordea politikoki bateratua, eta osagaiak (hiri estatuak, nazio-estatuak, baita inperioak ere), **ekonomiazkoak** ziren harremanen bidez zeuden batez ere lotuak. Koro Navarro

Zentralizazio-politika abian jartzea eta nazio barneko **ekonomia** liberalizatzea izan zen japoniarren erreakzioa. Koro Navarro

Enpresaren **ekonomia** edo administrazioari buruzko eskuliburu nahiko tradizionala. Berria - Euskal Herria

Lizentziaren oinarrian kluben **ekonomia** bideratzeko beharra dago. Berria - Kirola

Eivissako autobidearen proiektuak ingurumenari eta uhartearen **ekonomiari** eragingo dizkion ondorio larriak. Berria - Mundua

Drogaren **ekonomia** garapen-bideko herrialde gero eta gehiagotan da garrantzitsua, eta, bere modura, globalizazioaren prozesuan parte hartzen du. Koro Navarro

Ekonomiak bizi zuen garai oparoak indarra ematen zion orduan nagusi zen eredu ekonomikoa bideragarria zen usteari. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bakarrizketak eta elkarrizketak baliatu zituen batik bat hizkuntzaren **ekonomia** horretarako. Berria - Kultura

Hitzaren eta marrazkiaren **ekonomia** maisutasunez uztartzen ditu. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

1960ko hamarraldiaren erditik aurrera abian jarritako **ekonomia** globalizatuak, ordea, erregulazioko egitura nazionalak haustera jotzen zuen. Munduko **ekonomia** indartsuenetako batean. Koro Navarro

Bretton Woodseko erakundeak, hartzekodunen eskaeren eta zordunen premien artean ebazle-eginkizuna betetzetik urrun, hartzekodunek eskaturiko **ekonomia** zordunen erreformaren tresna izan ziren. Koro Navarro

Ekonomia orokorra, berriz, mikroekonomian eta makroekonomian banatzen da. Iñaki Heras

Ekonomia kapitalistek, oro har, hobeto funtzionatzen dute truke-tasa finkoekin. Iñaki Heras

Bere modura, iraultzailea izan zen Keynes, hankaz gora jarri baitzituen **ekonomia** liberal klasikoaren zenbait oinarrizko abiapuntu eta uste. Iñaki Heras

Luzaro nagusi izan den **ekonomia** planifikatua. Gotzon Garate

Ekonomia finantzarioa **ekonomia** errealetik banatu da, nahiz eta hein batean baino ez den hori gertatzen. Iñaki Heras

Ekonomia ahalguztidunaren kontzeptu, gai edo arazo bakoitzaren alde desberdinei erreparatzea da gure helburua. Iñaki Heras

Ekonomia berdea: Ekonomia eta Ekologia. Iñaki Heras

Amsterdam bihurtu zen Europako lehen **ekonomia** eta finantzagunea. Koro Navarro

Diru- eta finantza- egongaiztasun honen sorburuan estatubatuar **ekonomiak** 1982tik aurrera munduko aurrezkiari egin zion diru-hustea dago. Koro Navarro

Zentzu horretan, munduko **ekonomia** gehiago da nazioarteko **ekonomia** huts-hutsa baino. Koro Navarro

Munduko **ekonomia**, sistema integratu gisa duela hamarraldi batzuk taxutzen hasi zena, mundu-ekonomia europarra izan zen hasieran, bestela esanda, ardatza Europan zuen mundu ekonomikoa zen. Koro Navarro

Munduko **ekonomiaren** egiturazko formak (Estatu Batuen hegemonia, Hegoaldearen mendekotasuna Iparraldeari buruz) izan ziren ekonomiaren funtzionamenduari buruzko hausnarketaren ardatza. Koro Navarro

Merkatuko **ekonomiarako** igarobidea ez dela apurka-apurka egin behar, horixe da bigarren fede-artikulua. Koro Navarro

Tratuzko **ekonomiak** hartu zuen esklaboen salerosketaren lekua. Koro Navarro

Hasieran, Oinarrizko **ekonomia**-unitateak (familiak, klanak, herriak), beren baitara bildurik bizi dira, eta ekoizten dutenaren parterik handiena kontsumitzen dute. Koro Navarro

Garapen-bideko **ekonomien** ezaugarri den kapital faltaren arazoak badu alderdi kualitatibo bat ere. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**ekonomi**) ik **ekonomiko**.

Ekonomia-eskualdeen muga politikoak alde batera utzita, Herbehereak, Ingalaterrako hego eta ekialdea eta Frantziako iparraldea har daitezke sistemaren zentrotzat 1600 urte inguruan. Koro Navarro

Nazio Batuen Erakundeko **Ekonomia** eta Gizarte Kontseiluak. Pello Salaburu

Trukeen liberalizazioa sustatu zuten halaber Europako **Ekonomia** Erkidegoaren sorrerak, [...] eta truke libreko eskualdeen arteko itunak. Koro Navarro

EEE Europar **Ekonomia** Elkargoa. Koro Navarro

Ekonomia sail desberdinetako lehen arduradunak. Herria

Askorentzat, **ekonomia** analisia lanbide dutenak aurreikuspenak egiten baino, aurreikusitakoa zergatik betetzen ez den azaltzen dira adituak. Iñaki Heras

Garapenaren gizarte eta **ekonomi** dimentsioei heltzen die, izadiaren kontserbaziorako hainbat neurri jasotzen ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez da erraza **ekonomia** pentsamenduaren historia laburra ematea. Iñaki Heras

Estatistikekin gertatzen den antzera, aipagarriak dira hainbat **ekonomia**-adierazleri loturiko paradoxa eta xelebrekeria batzuk. Iñaki Heras

Halaxe azalduko zaizkigu maiz **ekonomia** auziak eta arazoak. Iñaki Heras

Ekonomia mirariaren Europa! Edorta Jimenez

Ekonomi eragozpen berezi horrek bi ondorio izan zituen. Iñaki Mendiguren

Ekonomia -aurkaritasunek eta gatazka militarrek, izan ere, estatuak esparru guztietan beregaintasuna sustatzera eraman zituen. Koro Navarro

Ekonomia -politikako gai espezializatuei buruz. Iñaki Heras

Sarritan azaltzen da, **ekonomia** gertakariei loturik, determinismoa. Iñaki Heras

Produktibitate-areagotzea **ekonomia** hazkundearen iturri nagusia da. Iñaki Heras

Europar mundu-ekonomia zaharra [...], indarberriturik irten zen ordea, bai **ekonomia** -beheralditik, bai gerratik. Koro Navarro

Estatu Batuetako finantza-krisiaren eta **ekonomia** -atzeraldi gogor baten mehatxuek areago indartuko zuten lankidetzaren aldeko joera hori. Koro Navarro

Ekonomia -krisia, testuinguru horretan, giltzarri garrantzitsua da garai hartan izan ziren arazoak interpretatzeko. Koro Navarro

Horra hor, hitz gutxitan laburturik, hainbat **ekonomia** krisiren azalpen teknikoa. Iñaki Heras

Ekonomilariek teoriak eta ereduak eratzen dituzte, **ekonomia** gertaerak aztertu, azaldu edo aurreikusi ahal izateko. Iñaki Heras

Truke-tasen gorabeherek modu askotara eragiten diote **ekonomia** -bilakaerari. Koro Navarro

Ekonomia eta estrategia interesen arabera. Alberto Ladron Arana

Ortodoxia liberalak 1970eko hamarraldiaren amaieratik aurrera izandako garaipenak **ekonomia** -globalizazioaren prozesuak atzerabiderik ez zuela berretsi zuen. Koro Navarro

Azkenaldi honetan abian jarri diren **ekonomia** -liberalizazioko politikek nazioarteko erakundeen babes gero eta handiagoa ekarri diote. Koro Navarro

Sisteman den diru kopuru osoa kontrolatzerakoan **ekonomia** jardueraren bilakaera ere kontrola daiteke. Iñaki Heras

Gaur egun indarrean den munduko hirutariko **ekonomia** -zatiketa gainditzeko. Koro Navarro

Iraganeko historiak erakutsia zuen elkarrenganako beldurra **ekonomi** gabezia bezain gerra-sortzaile indartsua zela. Iñaki Mendiguren

Mikroekonomiak **ekonomia** agente bakoitzaren jokabidea eta agente horiek parte hartzen duten merkatuen funtzionamendua aztertzen du. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oxfordeko Unibertsitateko Osasun **Ekonomia** Ikertzeko Zentroko adituek egin dute txostena. Berria - Gaiak

1970eko hamarraldian agertu zen "Hego-Hego" deritzan zorduntze-**ekonomiaren** [...] eta 1980ko hamarraldiko "Ipar-Ipar" zorduntze-**ekonomiaren** artean dagoen oposizioaren nolakotasuna zehatz daiteke. Koro Navarro

Diru-**ekonomia** Japonian sartzeak... iraultza geldo baina geraezina eragin zuen. Iñaki Mendiguren

Horrek ez du merkataritza-**ekonomiaren** sorrerarekin batere loturarik. Koro Navarro

Joera liberalak merkatu-**ekonomian** edo sistema kapitalistan merkatu mekanismoek duten garrantzia azpimarratzen du. Iñaki Heras

Munduko ekonomia, sistema integratu gisa duela hamarraldi batzuk taxutzen hasi zena, mundu-**ekonomia** europarra izan zen hasieran, bestela esanda, ardatza Europan zuen mundu ekonomikoa zen. Koro Navarro

Mundu-**ekonomia** bat, hau da, kapital metaketa mundu osoan bizi duen ekonomia bat. Iñaki Heras

Ekonomiaren globalizazioak eragindako elkarrekiko mendekotasun berriak eta eragile berrien botere-goraldia zirela-eta, nazio-**ekonomiek** malgutu beharra zuten. Koro Navarro

Estatuen finantza-premien eta hiri-**ekonomiaren** artean harrapaturik, lur jo zuen betiko jaurgo-**ekonomiak**. Koro Navarro

Aurrerago aztertuko den kasino-**ekonomiarekin**. Iñaki Heras

Langileek merkatuaren eskakizunetatik kanpo dagoen familia-**ekonomia** batean aurki baititzakete bizitzeko bitartekoak. Koro Navarro

Gorputzean hainbat aldiz hauteman den diseinu-**ekonomia** horrekin betetzen ditu larruazalak bere eginkizun ugariak. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ekonomi eta (12); **ekonomi eta gizarte** (5); **ekonomi lankidetza** (11); **ekonomi lankidetza eta** (11); **eta ekonomi** (25); **gizarte eta ekonomi** (5); **ocde ekonomi** (7); **ocde ekonomi lankidetza** (6)

aebetako ekonomia (20); **alemaniako ekonomia** (17); **almunia ekonomia** (10); **almunia ekonomia komisarioak** (6); **bai ekonomia** (9); **baina ekonomia** (6); **batasuneko ekonomia** (11); **batasuneko ekonomia eta** (8); **batuetako ekonomia** (10); **batuko ekonomia** (8); **bere ekonomia** (9); **beren ekonomia** (8); **bertako ekonomia** (5); **bi ekonomia** (8); **bizkaiko ekonomia** (8); **brown ekonomia** (5); **da ekonomia** (38); **dela ekonomia** (6); **den ekonomia** (10); **dio ekonomia** (6); **dira ekonomia** (11); **du ekonomia** (26); **duen ekonomia** (8); **dute ekonomia** (9); **eaeko ekonomia** (11); **ebko ekonomia** (13); **ebko ekonomia eta** (8); **edo ekonomia** (21); **egungo ekonomia** (12); **ehuko ekonomia** (8)

ekonomia aldetik (11); **ekonomia alorrean** (7); **ekonomia arloan** (11); **ekonomia arloko** (8); **ekonomia aurten** (10); **ekonomia bat** (8); **ekonomia batean** (6); **ekonomia baten** (5); **ekonomia berri** (5); **ekonomia berria** (7); **ekonomia berriaren** (15); **ekonomia da** (9); **ekonomia dela** (5); **ekonomia edo** (16); **ekonomia ere** (11); **ekonomia eredu** (5); **ekonomia eta** (272); **ekonomia eta diru** (18); **ekonomia eta ekologia** (6); **ekonomia eta enpresa** (8); **ekonomia eta finantza** (33); **ekonomia eta gizarte** (51); **ekonomia eta kultura** (9); **ekonomia eta ogasun** (41); **ekonomia eta politika** (6); **ekonomia ez** (19); **ekonomia foroan** (10); **ekonomia gai** (5); **ekonomia gaietarako** (8); **ekonomia hazkunde** (6); **ekonomia hazkundea** (15); **ekonomia hazkundearen** (10); **ekonomia horren** (6); **ekonomia ikasketak** (6); **ekonomia irakasle** (6); **ekonomia irakaslea** (6); **ekonomia jarduera** (7); **ekonomia jarduerak** (5); **ekonomia kapitalista** (5); **ekonomia kapitalistaren** (7); **ekonomia komisarioak** (8); **ekonomia mailean** (10); **ekonomia ministerioak** (8); **ekonomia ministerioaren** (5); **ekonomia ministro** (35); **ekonomia ministro pedro** (7); **ekonomia ministroa** (13); **ekonomia ministroak** (74); **ekonomia ministroaren** (7); **ekonomia ministroari** (5); **ekonomia mundu** (5); **ekonomia ongi** (5); **ekonomia politika** (15); **ekonomia politiko** (6); **ekonomia politikoa** (11); **ekonomia politikoaren** (10); **ekonomia sailburuak** (5); **ekonomia sailean** (14); **ekonomia saileko** (5); **ekonomia sendo** (9); **ekonomia sistema** (9); **ekonomia suspertzeko** (8); **ekonomia sustatzeko** (6)

ere ekonomia (8); **erresuma batuko ekonomia** (8); **espainiako ekonomia** (53); **espainiako ekonomia eta** (13); **espainiako ekonomia ministro** (8); **espainiako ekonomia ministroak** (12); **estatu batuetako ekonomia** (9); **eta ekonomia** (167); **eta ekonomia eta** (10); **etxeko ekonomia** (6); **euren ekonomia** (5); **euroguneko ekonomia** (25); **europako batasuneko ekonomia** (11); **europako ekonomia** (19); **euskal ekonomia** (6); **euskal herriko ekonomia** (17); **ez da ekonomia** (5); **finantza eta ekonomia** (5); **francisco iribarren ekonomia** (10); **frantziako ekonomia** (35); **frantziako ekonomia ministro** (6); **frantziako ekonomia ministroak** (16); **gipuzkoako ekonomia** (6); **gizarte eta ekonomia** (23); **gobernuko ekonomia** (5); **gure ekonomia** (17); **hango ekonomia** (5); **hazi zen ekonomia** (5); **herrialdeko ekonomia** (5); **herriko ekonomia** (17); **herriko ekonomia eta** (5); **hori ekonomia** (5); **iribarren ekonomia** (11); **iribarren nafarroako ekonomia** (5); **italiako ekonomia** (9); **joaquin almunia ekonomia** (9); **kasino ekonomia** (8); **lekuko ekonomia** (7); **mailako ekonomia** (8); **merkatu ekonomia** (12); **mundu ekonomia** (27); **mundu ekonomia kapitalistaren** (7); **mundu mailako ekonomia** (7); **munduko ekonomia** (68); **munduko ekonomia foroan** (7); **nafarroako ekonomia** (27); **nafarroako ekonomia eta** (6); **nazioarteko ekonomia** (21); **nicolas sarkozy ekonomia** (10); **oinarritutako ekonomia** (5); **pedro solbes ekonomia** (12); **politika eta ekonomia** (11); **sarkozy ekonomia** (11); **sarkozy ekonomia ministroak** (7); **sarkozy frantziako ekonomia** (18); **solbes ekonomia** (12); **solbes ekonomia ministroak** (5); **solbes espainiako ekonomia** (18); **txinako ekonomia** (6); **unibertsitateko ekonomia** (8); **zen ekonomia** (11); **zuen ekonomia** (18)

aebetako ekonomiak (10); **da ekonomian** (8); **ekonomiak eta** (8); **ekonomiak ez** (8); **ekonomiak izan** (5); **ekonomiako nobel** (6); **ekonomian duten** (5); **ekonomian esku** (7); **ekonomian eta** (16); **ekonomian ez** (5); **ekonomian txertatzeko** (5); **eta ekonomiak** (7); **eta ekonomiako** (6); **eta ekonomian** (13); **euskal ekonomiak** (5); **gizarte ekonomiako** (5); **merkatu ekonomiak** (6); **merkatu ekonomian** (5); **munduko ekonomiak** (13); **munduko ekonomian** (19)

aebetako ekonomiaren (13); **alemaniako ekonomiaren** (6); **baita ekonomiaren** (5); **da ekonomiaren** (16); **dela ekonomiaren** (5); **dira ekonomiaren** (7); **ekonomiaren alde** (6); **ekonomiaren aldetik** (25); **ekonomiaren alor** (5); **ekonomiaren alorrean** (7); **ekonomiaren arteko** (5); **ekonomiaren beste** (5); **ekonomiaren bilakaera** (7); **ekonomiaren egoera** (15); **ekonomiaren eta** (34); **ekonomiaren eta gizartearen** (7); **ekonomiaren gaineko** (5); **ekonomiaren garapena** (12); **ekonomiaren globalizazioa** (5); **ekonomiaren gora** (11); **ekonomiaren gora beheretan** (5); **ekonomiaren hazkundea** (25); **ekonomiaren hazkundeari** (5); **ekonomiaren hazkuntza** (24); **ekonomiaren historia** (5); **ekonomiaren ikuspegitik** (6); **ekonomiaren inguruko** (7); **ekonomiaren motor** (5); **ekonomiaren mundu** (6); **ekonomiaren susperraldia** (8); **ekonomiaren suspertzea** (7); **ekonomiaren zeretan** (5); **eta ekonomiaren** (52); **eta ekonomiaren arteko** (5); **euroguneko ekonomiaren** (9); **europako mundu ekonomiaren** (5); **europar mundu ekonomiaren** (8); **euskal ekonomiaren** (10); **euskal herriko ekonomiaren** (6); **gure ekonomiaren** (7); **hemengo ekonomiaren** (7); **herriko ekonomiaren** (7); **merkatu ekonomiaren** (9); **mundu ekonomiaren** (19); **munduko ekonomiaren** (54); **munduko ekonomiaren hazkuntza** (6); **nafarroako ekonomiaren** (8); **nazioarteko ekonomiaren** (15); **politikaren eta ekonomiaren** (5)

bideko ekonomien (10); **ekonomiari buruz** (16); **ekonomiari buruzko** (20); **ekonomiari dagokionez** (8); **ekonomiari eta** (5); **ekonomiari kalte** (9); **ekonomiaz eta** (7); **ekonomiazko merkataritza** (8); **ekonomiazko merkataritza egiten** (5); **eta ekonomiari** (17); **garapen bideko ekonomien** (9); **munduko ekonomiari** (8)

---

ekonomialari *(ETCn **1.724** agerraldi; orobat **ekonomilari** ETCn **436** agerraldi; cf **ekonomista** (ETCn **1.162** agerraldi) iz ekonomian aditua.*

Ekonomialarien arabera, nazioarteak halakorik eginez gero, Ukrainako ekonomiak behera egingo du nabarmen. Berria - Mundua

Ekonomialariak gai dira merkataritza-zikloen uhin-luzerak kalkulatzeko. Iñaki Mendiguren

Ekonomialariek hedapen prozesuan diren moneta-adierazleak ikusten dituzte, baina ekologoek, biologoek, soziologoek, psikologoek eta giza garapen iraunkorraren arloko aditu guztiek ekonomia berregituratzeko beharra ikusten dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Esan izan da bazegoela korrespondentziarik eguraldi eta uzta ziklo hauen eta zenbait **ekonomialarik** marrazturiko industri ziklo ekonomikoen artean. Iñaki Mendiguren

Ekonomialari gisa egiten dut lan nire osabaren rantxoan. Bernardo Atxaga

Fisiokrata deitutako **ekonomialari** frantsesak izan ziren nazioen aberastasun erreala aberastasun horren oinarri fisiko naturalarekin estuki lotu zuten azken autoreak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekonomialari neoklasikoek herrialde baten aberastasunetik kanpoko zerbait balira bezala hartzen dituzte truke-baliorik ez duten natur baliabideak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mariasun Landa ahots literarioen magia eta sekretuen ikerle nekaezina da, eta hitzen **ekonomialaria**: lan laburrak eta trinkoak gustatzen zaizkio, kentzea du obsesio. Ana Urkiza

---

ekonomika *iz* burdinurtuzko sukaldea, ikatz edo egur gutxi erretzen duena, eskuarki labe bat eta ur zirkuito itxi bat ere berotzen dituena. ik **ekonomiko 2**.

Tiraderatik paper batzuk hartu nituen, sindikatuko eranskailuak eta partiduko barne ohar batzuk hautsi egin nituen, sukaldeko **ekonomikan** erretzeko, badaezpada ere. Jon Maia

Ekonomika gainean eltzea lurruna dariola, kako batean txapa irekitzeko gantxoa, paretan Arantzazuko egutegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Adelak lurrezko kazola bat hartu zuen **ekonomikaren** txapa gainetik, eta gure mahaira ekarri. Bernardo Atxaga

Tximiniak ondo tiratzen ez, nonbait, eta ke laino bat zegoen gela osoan barreiaturik, **ekonomika** gaineko eltzearen belar-lurrinarekin nahasten zena. Eztarriko eta inguruko gaitzetan-eta, **"ekonomika"** gainean bero-bero egindako zahia, zapi batean bil-bil egin, eta lepoaren jiran, eztarriari bero eusten, edukita nago ni txikitan. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ekonomiko 1 *iz* ekonomiarena, ekonomiari dagokiona. ik **ekonomia 3**.

Beren tesi ideologikoa zientzia edota teoria **ekonomikoarekin** egiaztaturik. Iñaki Heras

Zientzia **ekonomikoa** bere planteamenduen birformulazio bat ikusten ari da, eta gero eta indartsuago ageri zaigu ekonomia alternatibo hori. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Japonian izan zituen nazionalismo **ekonomikoak** emaitzarik ikusgarrienak. Koro Navarro

Soilik sozialista utopikoek (Saint-Simon, Sismondi, Fourier, Owen, Blanc, Proudhon, etab.) salatu zituzten gogor liberalismo **ekonomikoaren** gehiegikeriak. Askoren artean

Ekonomian errentagarritasun **ekonomiko** hutsa da nagusi. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

"Gizonak trukean aritzeko, gauzak aldatzeko eta gauza bat bestearen ordez emateko berez duen joeran" datza azterketa **ekonomikoaren** oinarri psikologikoa. Koro Navarro

2003-2004 urteetako balantze **ekonomikoa** aurkeztuko dute. Berria - Kirola

Ahalegin horretan faktore **ekonomikoak** eta prozesu ekologikoak hartu behar baitira kontuan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Botere **ekonomikoa** eta nagusitasun ideologikoa metatu dute, informazioak berekin gizarte erantzukizuna dakarrela ahaztuz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Burujabetza **ekonomikoa** hizpide izan zen atzo Donostiako Ibaeta campuseko Filosofia Fakultatean Batasunak eginiko topaketetan. Berria - Ekonomia

Xiberoko egoera **ekonomikoa** aipatu da asteazken goizan, Maulen bildu den kuntseilu generalaren batzorde **ekonomikoan**. Herria

Eredu **ekonomiko** hori ezinezkoa da kapitalismoan, ez baita truke demokratiko etikoan oinarritzen. Berria - Mundua

Sistema **ekonomiko** batek, kapitalismoak alegia, mundu osoan duen nagusitasuna. Koro Navarro

Kontzertu **ekonomikoa** blindatu behar dugu. Berria - Euskal Herria

Egun, elikadura ordena **ekonomiko** eta sozialaren egituraketa edo desegituraketaren funtsezko elementua da. Edorta Agirre

Planeta mailako integrazioaren ondoren eraturiko espazio **ekonomikoa**, hasieratik bertatik, oso espazio hierarkizatua izan zen. Koro Navarro

Biztanleak: 1460. Jarduera **ekonomiko** nagusia: nekazaritza eta abeltzaintza. Bernardo Atxaga

Bizkorraldiaren bigarren lilura arlo honetan oso bestelako kausa batek eragina izan zen, iraultza **ekonomiko** berriak alegia. Iñaki Mendiguren

Globalizazio **ekonomikoaren** sorrera. Koro Navarro

Inflazioaren kontrolak, itxura guztien arabera, hazkundea motelduko du, hau da, suspertze **ekonomikoa** etengo du eta azpienplegu jadanik masiboa handituko. Koro Navarro

Hirurogeiko hamarkada boom **ekonomikoa** besapean zekarrela jaio bazen, krisi politiko latzarekin bukatu zen. Anjel Lertxundi

Egokiagoa da adierazle horietaz aritzerakoan hazkunde **ekonomikoaz** baino hazkunde materialaz mintzatzea, eta inondik ere ez, jakina, garapen **ekonomikoaz**. Iñaki Heras

Estatuaren parte-hartze horrek XVII. mendeko beheraldi **ekonomikoan** eta gerra-giroan hartzen du bere zentzu osoa. Koro Navarro

Parmalat enpresa erraldoiaren gainbehera **ekonomikoak** kinka larrian ipini du Parma. Berria - Kirola

Errealitate **ekonomikoa** giza errealitate konplexua izanik, ezinbestekoa baita taxuz aztertu ahal izateko ereduetara jotzea. Iñaki Heras

Hala izan da beti krisi **ekonomikoa** gertu izan den bakoitzean. Iñaki Heras

Esaten zuten erretiratu egin zutela, jendeak lehen bezainbat ez zuelako edaten, atzeraldi **ekonomikoaren** kariaz. Juan Kruz Igerabide

Kontinente baten porrot **ekonomikoa**. Lopez de Arana

Zimbaweko kaos **ekonomiko** eta politikoaren erantzuleak AEBak eta Londres direla. Berria - Harian

George Bush AEB Ameriketako Estatu Batuetako presidenteak, eskulan merkerako behar **ekonomikoak** ase, eta, aldi berean, hispanoen bozak eskuratu nahi ditu. Berria - Mundua

Editoreek lasaitasun **ekonomiko** minimo bat behar dute euskal literaturaren aldeko apustu garbi eta planifikatu bat egingo badute. Ana Urkiza

Herrialde horiei gehiegizko zama **ekonomikoa** eragiteke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez da soilik politika **ekonomikoaren** helburu bat, baizik eta politika orokorrarena, zeren eta BPGa gizarte ongizatearen adierazletzat hartua baita. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Negozio-zikloen ezaugarriak aldatzea espero litekeela antolaketa **ekonomikoa** aldatu ahala. Iñaki Mendiguren

Unibertsitate irakaskuntzarako ahalegin **ekonomikoa**, barne produktu gordinaren ehuneko gisa adierazita. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Politika makroekonomikoan, ekonomia-aginte jakin batek zehazten ditu bere helburu **ekonomikoak** eta horiek lortzeko tresnak. Iñaki Heras

Neomerkantilismo hori -Machiavelli eta Hobbesez geroztik kontinente zaharrean nagusitu zen errealismo politikoaren bertsio **ekonomikoa**-, 1870etik aurrera zabaldu zen. Koro Navarro

Estatuak bizitza **ekonomikoan** modu sistematiko eta koherentean aurrenekoz parte hartu zuen alditzat har daiteke merkantilismoa. Koro Navarro

Aberatsa baitzen jaiotzez, ez zuen kezka **ekonomikorik** sekula eduki. Jon Alonso

Doikuntzak egin dira Berrikuntzen Ardatza dela eta (Gasteiz, Legutiano eta Langraiz Oka lotuko lituzkeen hirukia, besteak beste, puntako alor **ekonomikoak** garatzeko). Berria - Euskal Herria

Zirt edo zart egiteko nengoela, zulo **ekonomikotik** aterako ninduena ezagutu nuen kafean. Anjel Lertxundi

John Dos Passosek argi eta garbi agertu zuen langileen mugimenduak, komunismoak eta *New Deal* izeneko erreforma **ekonomiko**-sozialak gero eta lilura gutxiago pizten ziotela. Lopez de Arana

Eskubide **Ekonomiko**, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nazio Batuen Europarako Batzorde **Ekonomikoa**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 gutxi gastatzen edo kontsumitzen duena.

Sutegi **ekonomikoko** depositutik ur beroa ateratzen ari zen lehenengo deiadarra entzun duenean. Pello Lizarralde

ik ekonomika.

Etxean sukalde **ekonomikoa** genuela jakinda irakurleak ez luke zeremonia poetiko asmatutzat hartu behar aitortzen baldin badiot erre egin nituela agenda haiek guztiak. Koldo Izagirre

Sutegi **ekonomikoaren** txapa ilunaren gainean bi eltze eta kafetera esmalte zurikoa. Pello Lizarralde

Sukaldea zen etxeko leku bero bakarra neguan, su handi haiei esker, "sukalde **ekonomikoa"** deitzen zieten. Mikel Hernandez Abaitua

3 dagokiona baino prezio edo gastu apalagoa duena.

Izan dira 11 sukaldari hor parte hartu dutenak eta gaia zuten aldi huntan arroltze moleta tortila patatarekin, jan **ekonomikoa**. Herria

Ez nituen albora utzi hizkuntza unibertsalak; aztertu nituen esperantoaren nondik-norakoak -hizkuntza "ekitatibo, sinple eta **ekonomikoa"**, Lunario sentimentalaren arabera- eta volapük-arenak, Juan Garzia

4 *sozio-ekonomiko* ik **sozioekonomiko**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahalegin ekonomiko (5); **akordio ekonomiko** (4); **aldaketa ekonomiko** (6); **aldaketa ekonomiko eta** (4); **arazo ekonomiko** (24); **arlo ekonomiko** (5); **arrazoi ekonomiko** (5); **atzean interes ekonomiko** (4); **baldintza ekonomiko** (7); **baliabide ekonomiko** (24); **baliabide ekonomiko urriak** (5); **behar ekonomiko** (6); **bizitza ekonomiko** (4); **botere ekonomiko** (12); **botere ekonomiko eta** (4); **datu ekonomiko** (6); **eaeko kontseilu ekonomiko** (5); **egitura ekonomiko** (5); **egoera ekonomiko** (55); **egoera ekonomiko eta** (6); **egoera ekonomiko larrian** (9); **egoera ekonomiko txarra** (4)

ekonomiko bat (20); **ekonomiko batean** (5); **ekonomiko baten** (11); **ekonomiko berriak** (4); **ekonomiko edo** (5); **ekonomiko edota** (5); **ekonomiko eta** (207); **ekonomiko eta kulturalen** (4); **ekonomiko eta politiko** (15); **ekonomiko eta politikoa** (4); **ekonomiko eta politikoak** (13); **ekonomiko eta politikoen** (5); **ekonomiko eta sozial** (9); **ekonomiko eta soziala** (16); **ekonomiko eta sozialak** (12); **ekonomiko eta sozialaren** (11); **ekonomiko eta sozialei** (4); **ekonomiko eta sozialeko** (9); **ekonomiko eta sozialen** (10); **ekonomiko gehiago** (8); **ekonomiko guztiak** (5); **ekonomiko handia** (18); **ekonomiko handiagoa** (9); **ekonomiko handiak** (23); **ekonomiko hori** (9); **ekonomiko horiek** (4); **ekonomiko horren** (6); **ekonomiko izugarria** (4); **ekonomiko jakin** (10); **ekonomiko larria** (10); **ekonomiko larriak** (7); **ekonomiko larrian** (11); **ekonomiko neoliberala** (4); **ekonomiko ona** (6); **ekonomiko onak** (5); **ekonomiko sargia** (6); **ekonomiko sargia baliatuz** (6); **ekonomiko txarra** (4); **ekonomiko ugari** (4); **ekonomiko urriak** (5)

eragile ekonomiko (4); **eredu ekonomiko** (25); **erreforma ekonomiko** (6); **eskaintza ekonomiko** (5); **eskubide ekonomiko** (9); **eta egoera ekonomiko** (4); **eta ekonomiko** (28); **etekin ekonomiko** (8); **garapen ekonomiko** (21); **garapen ekonomiko eta** (6); **gastu ekonomiko** (4); **gune ekonomiko** (4); **harreman ekonomiko** (5); **hazkunde ekonomiko** (21); **helburu ekonomiko** (4); **ikuspegi ekonomiko** (6); **indar ekonomiko** (4); **interes ekonomiko** (39); **interes ekonomiko eta** (15); **interes ekonomiko handiak** (7); **jarduera ekonomiko** (9); **kalte ekonomiko** (6); **kontseilu ekonomiko** (16); **kontseilu ekonomiko eta** (16); **kostu ekonomiko** (7); **krisi ekonomiko** (15); **krisi ekonomiko larria** (4); **laguntza ekonomiko** (13); **maila ekonomiko** (9); **neurri ekonomiko** (9); **ondorio ekonomiko** (13); **ondorio ekonomiko eta** (5); **politika ekonomiko** (22); **politika ekonomiko eta** (6); **politiko eta ekonomiko** (13); **potentzia ekonomiko** (4); **sektore ekonomiko** (5); **sistema ekonomiko** (9); **sozial eta ekonomiko** (6); **sozio ekonomiko** (20); **sozio ekonomiko eta** (5)

ahalegin ekonomikoa (11); **ahalmen ekonomikoa** (7); **alderdi ekonomikoa** (5); **arazo ekonomikoa** (13); **arlo ekonomikoa** (12); **askatasun ekonomikoa** (5); **babes ekonomikoa** (8); **bahimendu ekonomikoa** (4); **balantze ekonomikoa** (4); **bideragarritasun ekonomikoa** (13); **botere ekonomikoa** (9); **burujabetza ekonomikoa** (11); **egoera ekonomikoa** (78); **egoera ekonomikoa ez** (7); **egoera ekonomikoa hobetzeko** (5)

ekonomikoa aintzat (4); **ekonomikoa aldatu** (5); **ekonomikoa aurkeztu** (4); **ekonomikoa baino** (6); **ekonomikoa baino gehiago** (4); **ekonomikoa baizik** (4); **ekonomikoa bere** (4); **ekonomikoa bultzatzeko** (4); **ekonomikoa da** (27); **ekonomikoa dela** (9); **ekonomikoa dela eta** (6); **ekonomikoa egin** (6); **ekonomikoa emateko** (5); **ekonomikoa erabat** (4); **ekonomikoa eragin** (4); **ekonomikoa ere** (20); **ekonomikoa eskatu** (5); **ekonomikoa eta** (74); **ekonomikoa eta politikoa** (11); **ekonomikoa eta soziala** (9); **ekonomikoa ez** (23); **ekonomikoa ez da** (10); **ekonomikoa ez ezik** (4); **ekonomikoa hobetu** (4); **ekonomikoa hobetzeko** (6); **ekonomikoa izan** (18); **ekonomikoa izan zen** (4); **ekonomikoa izango** (4); **ekonomikoa jaso** (4); **ekonomikoa kontuan** (5); **ekonomikoa kritikatu** (4); **ekonomikoa lortzeko** (6); **ekonomikoa oso** (10); **ekonomikoa sustatzea** (5); **ekonomikoa sustatzeko** (7); **ekonomikoa zein** (4); **ekonomikoa zen** (4)

eredu ekonomikoa (5); **errealitate ekonomikoa** (5); **erreforma ekonomikoa** (4); **eskaintza ekonomikoa** (4); **eta egoera ekonomikoa** (4); **eta ekonomikoa** (37); **eta garapen ekonomikoa** (10); **eta hazkunde ekonomikoa** (6); **eta hazkuntza ekonomikoa** (4); **eta independentzia ekonomikoa** (4); **eta kontzertu ekonomikoa** (4); **etekin ekonomikoa** (6); **garapen ekonomikoa** (62); **garapen ekonomikoa eta** (6); **garapen ekonomikoa sustatzeko** (5); **gastu ekonomikoa** (5); **hazkunde ekonomikoa** (61); **hazkunde ekonomikoa eta** (8); **hazkuntza ekonomikoa** (22); **indar ekonomikoa** (8); **independentzia ekonomikoa** (18); **isun ekonomikoa** (4); **jarduera ekonomikoa** (15); **kalte ekonomikoa** (5); **klubaren egoera ekonomikoa** (6); **kontzertu ekonomikoa** (18); **krisi ekonomikoa** (15); **laguntza ekonomikoa** (27); **laguntza ekonomikoa emateko** (4); **laguntza ekonomikoa eta** (6); **mendekotasun ekonomikoa** (6); **menpekotasun ekonomikoa** (4); **ordena ekonomikoa** (4); **politika ekonomikoa** (22); **politika ekonomikoa eta** (4); **politiko eta ekonomikoa** (11); **politikoa eta ekonomikoa** (9); **porrot ekonomikoa** (4); **sistema ekonomikoa** (9); **sostengu ekonomikoa** (4); **sozio ekonomikoa** (17); **susperraldi ekonomikoa** (7); **suspertze ekonomikoa** (10); **txosten ekonomikoa** (4); **zigor ekonomikoa** (6)

arazo ekonomikoak (31); **arazo ekonomikoak zirela** (4); **arrazoi ekonomikoak** (15); **baldintza ekonomikoak** (5); **baliabide ekonomikoak** (36); **baliabide ekonomikoak eta** (4); **behar ekonomikoak** (4); **bitarteko ekonomikoak** (6); **botere ekonomikoak** (4); **datu ekonomikoak** (8); **egoera ekonomikoak** (18); **ekonomikoak aipatu** (9); **ekonomikoak aipatu zituen** (4); **ekonomikoak daude** (5); **ekonomikoak dira** (6); **ekonomikoak direla** (6); **ekonomikoak edo** (5); **ekonomikoak ere** (17); **ekonomikoak eta** (46); **ekonomikoak eta kulturalak** (5); **ekonomikoak eta politikoak** (4); **ekonomikoak ez** (17); **ekonomikoak hobeto** (4); **ekonomikoak izan** (11); **ekonomikoak izango** (9); **ekonomikoak oso** (4); **ekonomikoak soilik** (4); **ekonomikoak zein** (4); **ekonomikoak zirela** (6); **ekonomikoak zirela medio** (4); **erreforma ekonomikoak** (11); **erronka ekonomikoak** (4); **eta baliabide ekonomikoak** (5); **eta ekonomikoak** (37); **etekin ekonomikoak** (7); **galera ekonomikoak** (12); **gastu ekonomikoak** (7); **harreman ekonomikoak** (9); **hazkunde ekonomikoak** (11); **helburu ekonomikoak** (4); **interes ekonomikoak** (27); **jarduera ekonomikoak** (11); **kalte ekonomikoak** (6); **kontzertu ekonomikoak** (5); **kostu ekonomikoak** (6); **krisi ekonomikoak** (11); **laguntza ekonomikoak** (11); **neurri ekonomikoak** (4); **ondorio ekonomikoak** (12); **pizgarri ekonomikoak** (5); **politika ekonomikoak** (11); **politiko eta ekonomikoak** (10); **sozial eta ekonomikoak** (12); **sozio ekonomikoak** (12); **zailtasun ekonomikoak** (6); **zientzia ekonomikoak** (4); **zigor ekonomikoak** (9)

arlo ekonomikoan (23); **ekonomikoan ere** (8); **ekonomikoan eta** (10); **eta ekonomikoan** (6); **garapen ekonomikoan** (4); **hazkunde ekonomikoan** (5); **maila ekonomikoan** (4); **modu ekonomikoan** (4); **politika ekonomikoan** (5)

botere ekonomikoaren (8); **burujabetza ekonomikoaren** (6); **burujabetza ekonomikoaren aldeko** (4); **egoera ekonomikoaren** (15); **ekonomikoarekin batera** (6); **ekonomikoaren aldaketa** (4); **ekonomikoaren alde** (5); **ekonomikoaren aldeko** (7); **ekonomikoaren arabera** (8); **ekonomikoaren artean** (4); **ekonomikoaren beharra** (4); **ekonomikoaren bidez** (5); **ekonomikoaren eta** (20); **ekonomikoaren eta politikoaren** (4); **ekonomikoaren gaineko** (5); **ekonomikoaren inguruan** (4); **ekonomikoaren inguruko** (5); **ekonomikoaren ondorioz** (5); **espazio ekonomikoaren** (7); **eta ekonomikoaren** (16); **eta hazkunde ekonomikoaren** (4); **garapen ekonomikoaren** (16); **hazkunde ekonomikoarekin** (6); **hazkunde ekonomikoaren** (33); **hazkunde ekonomikoaren eta** (4); **hazkuntza ekonomikoaren** (8); **hitzarmen ekonomikoaren** (4); **jarduera ekonomikoaren** (12); **kontzertu ekonomikoaren** (9); **liberalismo ekonomikoaren** (5); **munduko espazio ekonomikoaren** (4); **politika ekonomikoaren** (19); **politiko eta ekonomikoaren** (8); **sistema ekonomikoaren** (9); **sistema sozio ekonomikoaren** (4); **sozio ekonomikoaren** (7)

bideragarritasun ekonomikoari (5); **bideragarritasun ekonomikoari** (5); **egoera ekonomikoari** (8); **egoera ekonomikoari** (8); **ekonomikoari aurre** (9); **ekonomikoari aurre** (9); **ekonomikoari aurre egiteko** (4); **ekonomikoari aurre egiteko** (4); **ekonomikoari buruz** (8); **ekonomikoari buruz** (8); **ekonomikoari buruzko** (9); **ekonomikoari buruzko** (9); **ekonomikoari dagokionez** (8); **ekonomikoari dagokionez** (8); **ekonomikoari eta** (4); **ekonomikoari eta** (4); **garapen ekonomikoari** (6); **garapen ekonomikoari** (6); **hazkunde ekonomikoari** (7); **hazkunde ekonomikoari** (7); **jarduera ekonomikoari** (5); **jarduera ekonomikoari** (5)

arazo ekonomikoek (7); **arazo ekonomikoen** (4); **arazo ekonomikoengatik** (5); **arrazoi ekonomikoengatik** (12); **botere ekonomikoen** (5); **ekonomikoei aurre** (7); **ekonomikoei aurre egiteko** (7); **ekonomikoei buruz** (6); **ekonomikoei buruzko** (7); **ekonomikoen alde** (5); **ekonomikoen arabera** (4); **ekonomikoen berri** (6); **ekonomikoen eta** (6); **ekonomikoen inguruko** (4); **ekonomikoen ondorioz** (4); **erreforma ekonomikoek** (4); **eta ekonomikoek** (6); **eta ekonomikoen** (9); **harreman ekonomikoen** (5); **interes ekonomikoei** (6); **interes ekonomikoek** (4); **interes ekonomikoen** (21); **interes ekonomikoengatik** (4); **jarduera ekonomikoen** (4); **nazioarteko harreman ekonomikoen** (4); **politika ekonomikoen** (8); **politiko eta ekonomikoek** (4); **sektore ekonomikoen** (5)

argudio ekonomikorik (4); **baliabide ekonomikorik** (5); **ekonomikorik ez** (19); **ekonomikorik gabe** (6); **eta ekonomikotik** (4); **eta garapen ekonomikorako** (4); **garapen ekonomikorako** (14); **ikuspegi ekonomikotik** (7); **laguntza ekonomikorik** (7); **sustapen ekonomikorako** (4); **zigor ekonomikorik** (4)

---

ekonomikoki **1** *adlag* ekonomiaren aldetik.

Ekonomikoki, are harrigarriagoak izan ziren haien irabaziak. Iñaki Mendiguren

Ekonomikoki, Realak ezin du, beharra izan eta etxean jokalari bat ez duen bakoitzean, merkatura irten eta nahi duen hura fitxatu. Berria - Kirola

Ekonomikoki ez omen zen une ona pasatzen ari. Jon Alonso

Zorionez, **ekonomikoki** autoerregulatzen den jardun artistikoa da bertsogintza, dirulaguntza berezirik behar eta nahi ez duena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen petrolio guneak daude Mendebaldeko Saharako uretan. Berria - Mundua

Bruselaren arabera, «**ekonomikoki** onargarria eta biologikoki beharrezkoa» den erabakia baino ez zuten hartu. Berria - Ekonomia

Teknikoki edo **ekonomikoki** posible dena batzuetan ez dela sozialki edo politikoki posible ez desiragarria. Iñaki Heras

Erregimen ekonomiko zaharraren ordez -non hiri-estatu heleniko bakoitza **ekonomikoki** unitate autonomoa baitzen- espezializazioa eta elkarrekiko mendetasuna zituen erregimen ekonomiko berria ezarriz. Iñaki Mendiguren

Proiektua **ekonomikoki** eta periodistikoki ez zela bideragarria zioten askok. Berria - Euskal Herria

Ez da bere berezko ingurunetik ez fisikoki ez sinbolikoki ez **ekonomikoki** urruntzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Politikoki eta **ekonomikoki**, gure herriarentzat inbertsiorik onena bidea egitea da bakerantz eta irtenbide demokratikorantz. Berria - Harian

SNCFren estrategia demoak **ekonomikoki** itotzea dela azpimarratu zuen Kamila Zubeldiak. Berria - Euskal Herria

Egin beharreko aldaketei dagokienez, %63ak **ekonomikoki**, politikoki eta sozialki aldaketa larriak behar direla dio; %4ak uste du oraingoz hobe dela ezer ez ukitzea. Pako Aristi

Trikuri oso ondo zihoakiok han **ekonomikoki**. Bernardo Atxaga

2 (izen eta izenondo baten artean)

Sarritan nazio **ekonomikoki** aurreratuen eragin politikoaren tresna osagarri bat baino ez baita izaten. Egoera **ekonomikoki** egonkor batean, Estatu Batuen indar hegemonikoaren babespean, globalizatu egin zen munduekonomia kapitalista. Koro Navarro

Egiteko gelditzen zitzaizkidan laurogei kilometro luzeetan zehar, Eskualde Hizkuntzak diren moldean, neure amodiozko dolore **ekonomikoki** inutilarekin tematu nintzen. Itxaro Borda

Gizarte **ekonomikoki** azpigaratu askotan, berriz, gizarte-kohesioaren eragile garrantzitsuak dira oraindik ere. Koro Navarro

---

ekonomilari ik **ekonomialari**.

---

ekonomismo *iz* egitate historiko, sozial eta kidekoak azaltzeko, faktore ekonomikoak lehenesten dituen dotrina; irizpide ekonomikoen gehiegizko erabaki indarra.

Ekonomismoa dügü ekonomiaren tirania. Herria

Hastetik jüdikatzen eta kritikatzen dü **ekonomismoa**, integrismo güziek bezala ogen egiten beitü jente güzier. Herria

Ekonomismoaren arrapostü bakoitxa, garapena, beti haboro ekoiztea eta saltzea, hortako beharrüne berriak piztez. Herria

Ekonomismoaren ondorio elibat ikusten dütügü heben ere, hala nola egongia baten edireiteko nekezia gazteentako. Herria

---

ekonomista *(ETCn **1.162** agerraldi)* **1** *iz* ekonomialari. ik **ekonomialari**.

Sortzen duen aberastasun hori zuzena izaten da batzuetan: enpresa batek **ekonomista** pare bat eta biologian adituak diren hiru lagun behar baldin baditu bere lanak aurrera eramateko, horiek unibertsitateak ematen dizkio. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Indiako atzeratasuna azaltzeko, lau arrazoi nagusi ematen dituzte **ekonomistek**. Gotzon Garate

Lamarka klausula sozialen alde mintzatu zen: “Garrantzitsuak eta baliotsuak dira eta nazioarteko arauetan lekua izan behar dute, zerbitzu sozialak alde batera utzi eta merkatu librea defendatzen duten **ekonomista**, erakunde eta gobernu asko baitago”. Berria - Euskal Herria

Ekonomistek diotenez, ekonomiak gutxienez %4ko erritmoan hazi behar du langabezia txikitzeko. Berria - Ekonomia

Ekonomistek uste baino motelago ibili da ekonomia, besteak beste, esportazioen beheraldiagatik. Berria - Ekonomia

Ekonomistek %9,8ko hazkuntza iragarri zuten urte amaierarako, baina erregaiaren prezioaren igoeraren ondorioz, orain %9koa aipatzen dute. Berria - Ekonomia

Ordu arte, eragin makroekonomikoen ikerketak eskaria zuen aztergai, baina bi **ekonomistek** frogatu zuten eskaintzak jasotzen dituen eraginek ere ondorio zabalak dituztela, eta, hala, bidea zabaldu zieten analisirako modelo sendoagoei. Berria - Ekonomia

Hala ere, EBZko **ekonomista** buru Otmar Issingek erantzun zuen oraingoz ez dagoela beharrik tasak igotzeko. Berria - Ekonomia

FMIren erakunde bikia den Munduko Bankuaren **ekonomista** burua izan zen Stiglitz. Iñaki Heras

Ekonomista liberalek hortxe aurkitzen dute truke librearen aldeko argudio benetan erabakigarri bakarra baliarazteko aukera. Koro Navarro

Hitzok *Mugarik Gabeko* ***Ekonomistak*** erakundeak Gipuzkoan duen koordinatzailearenak ziren. Iñigo Aranbarri

Inbertsioek eragin dute gorakada, eta nazioarteko **ekonomistek** zuhurtziaz hartu dute datua. Berria - Ekonomia

Latino Amerikako Nazio Batuetako Ekonomia Batzordeko **ekonomistek** [...] osatu zuten, gerraren ondoren, "Zentro-periferia sistema" delako teoria; ekoizpen-egituren dualismoa azpimarratzen zuten hain zuzen ere espazio periferikoa definitzean. Koro Navarro

2 (hitz elkartuetan)

Euskal Herriko garraio azpiegiturek aldaketa sakona behar dutela uste du Antxon Olabe ingurumen **ekonomistak**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ekonomista buruak (5); **ekonomista buruaren** (3); **ekonomista eta** (6); **eta ekonomista** (3); **urteko ekonomistak** (3)

---

ekonomizatu, ekonomiza, ekonomizatzen du *ad* xahupenak murriztu.

«**Ekonomizatzeagatik** eta praktikotasunagatik» ez dutela guztia euskaratu azaldu dute antolakuntzakoek, «ez dugu euskara ahaztu, adibidez, prentsa txostenetan eta katalogoko sarreran erabili dugu». Berria - Kultura

Idaztean **ekonomizatu** egin behar dela esan zuen: «Errealitate infinituaren arrastoari ezin zaio jarraitu, liburua mugatua da eta». Berria - Kultura

Bizitza -gertakizunen, sentsazioen eta pentsamenduen anabasa sekulakoa izaki- idazleak hautatu eta **ekonomizatu** egiten du, ispiluak ez bezala, bere biografiaren anabasa horretan. Juan Garzia

---

ekonomizista *izond* ekonomismoan oinarriturikoa.

Ikuspegi **ekonomizista** batek, ordea, ezinbestekoa du gure lana elkor, galgarritzat jotzea. Anjel Lertxundi

Lanaren ikuspuntu mekanizista eta **ekonomizista** du oinarri eredu honek: lana, materialen kostuen antzera, beste kostu aldakor bat da. Iñaki Heras

---

ekonomo *(orobat **ekonoma**) iz* eliza, konbentu edo elizbarruti bateko ondasunak kudeatzen dituen elizgizona edo moja.

Andres Untzain **ekonomo** zegoen Arabako Egino herrira. Edorta Jimenez

Gero jin zen Baionako semenario handira 1960 ean, apezgaien moldatzaile eta **ekonoma** gisa. Herria

Bazaukan hemen ere egitekorik: Baionan berean, semenarioko erakasle, eta **ekonoma** aita-hazle, 1960 an berriz Kanboko erretor nausi. Herria

Jesuita bat, eta gainera **ekonoma**, ebatsia izaitea ez zela hain ohoragarri erran nion! Marzel Etxehandi

Aita Pébroc, Mende-ko Jesuiten **ekonomari**, aita Riquet-ek eman ogi kosko bat eraman zioten. Marzel Etxehandi

---

ekoparke *iz* hondakinak prozesu ekologikoen bidez tratazeko gunea.

Ekoparkeak deitu dituzten horiek, hemen ekoguneak edo ez dakit zelan deituko ditugun. Berria - Harian

Alternatibak egon badaudela gaineratu du, hala nola murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea, biometanizatzea eta konpostatzea, bai **ekoparkeetan**, bai beste mota bateko instalazioetan. Berria - Euskal Herria

« **Ekoparkeak** erraustegien alternatibak izan daitezkeela gaineratu zuen Noguesek: «Besteak beste, Katalunian eta Galizian **ekoparkeen** sistema erabiltzen dute». Berria - Euskal Herria

Ekoparkeetan hondakinak prozesu naturalen bidez tratatzen direla azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

---

ekopraxi *iz* portaeraren nahasmendua, beste norbaiten mugimenduak automatikoki errepikatzean datzana.

Sindromearen ezaugarriak honako hauek ziren batik bat: tik konbultsiboak, besteren hitz edo egintzak nahi gabe imitatzea edo errepikatzea (ekolalia eta **ekopraxia**) eta madarikazio nahiz zantarkeriak gogoz bestera eta konpultsiboki botatzea (koprolalia). Xabier Olarra

---

ekoprodukzio *iz* ekoizpen ekologikoa.

Teknizismoaren eta aurrerapenaren kontrako utopiaren ordez, kontsumo ekologikoaren utopia da nagusi: produktu biologikoen eta ekologikoen shopping ekologikoa, nolabaiteko hedonismo ekologikoa, eta produkzio bide ekologikoen neofordismo ekologikoa, **ekoprodukzioa**. Iñaki Heras

---

ekorketa *(3 agerraldi, liburu 1ean; ETCn 199 agerraldi) iz* tresna elektroniko bat eremu batean zehar pasatzea, bertan dagoena detektatuz.

Irudi elektronikoa bere gainazalaren **ekorketa** batek sortua izateak **ekorketa** horretaz egin daitezkeen manipulazio berezietarako aukera ematen du. Josu Zabaleta

Pantailaren argitasuna aski indartsua izaten da normalean, ohartu gabe igarotzekoa ez den argi-dardara bat gerta dadin; bideo-irudiaren argi-dardara berezia da, gainera, zeren argiaren **ekorketaren** eraginez, bai baitirudi ez dela pantaila osora aldi berean iristen. Josu Zabaleta

---

ekortu, ekor(tu), ekortzen 1 du *ad* erratza pasatu, eskuarki azalera bat garbitzeko.

Garbiketa lanak (mantelak, zapiak, sukaldeko ontziak eta tresnak, mahaikoak, lurra **ekortzea**...). Edorta Agirre

Ni zure adinekoa nintzenean Fredericksburg-eko bulego bat **ekortu** behar izaten nuen eta hilean hamabost dolar irabazten nituen. Lopez de Arana

Harria berriz hartzen denean, geratzen diren tantak hain txikiak direnez, ezin izaten dira bildu, horregatik **ekortuz** ur-ontzi batean biltzen dira; urarekin denak elkartu eta bat egiten dira. Santiago Iruretagoiena

2 irud/hed

Eta haize bortitzaren goren indarrak itsas lautadan untziteria bateko almirantea, bere legio suhar eta elefanteekin batera, **ekortzen** duenean. Xabier Amuriza

Bizien mundutik jotzen zuen haizeak kealdiak eta jarioak **ekortzen** zituen Lurralde Ilunera, haien sorlekura. Agustin Otsoa

---

ekosistema 1 *iz* sistema ekologikoa, ingurumenak eta bertan bizi diren izakiek osatua.

Ekosistema: Landare, animalia, onddo eta mikroorganismoen populazioen arteko harremanak eta medioarekin duten erlazioa adierazten ditu. Berria - Gaiak

Basoa, larrea, aintzira, hondartza edo padura **ekosistematzat** hartzen dira. Berria - Gaiak

Entitate konplexuak (proteinak, zelulak, organismoak, **ekosistemak**) zati osagarrien ezaugarrien arabera azal daitezkeela. Askoren artean

Haranetako nekazaritza uztearekin eta *insignis* pinuaren ezarpenarekin paisaia erabal aldatu da **ekosistemaren** kalterako. Berria - Euskal Herria

Ekosistemen oreka kontuan hartzeko eskatzen du ekologismoak. Berria - Gaiak

Ekosistemen suntsiketa, aniztasun biologikoa eta baliabideen kontrola. Berria - Harian

Proiektuak ez ditu errauste plantak **ekosisteman** eta gizartean izango dituen eraginak kontutan hartzen. gure lurraldean eta gure **ekosistemekin** bizitzeko eskubidea dugu. Berria - Euskal Herria

Txosten hauekin agerian geratu dira Prestige-ren hondoratzearen ondorio kaltegarriak, hemengo **ekosistemetako** kate trofiko osoaren bioadierazle diren bi espezieren ikerketarekin. Berria - Euskal Herria

Estatuek mundu mailako elkartasun espirituarekin egin beharko dute elkarlana, Lurraren osasuna eta **ekosistemaren** osotasuna kontserbatzeko, babesteko eta berrezartzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Berotzeak euriak murriz ditzake eta milaka **ekosistema** arriskuan jarri. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egia da posible izan daitekeela sortutako landare berriak kontrolik gabe hedatu eta **ekosistema** naturala hondatzea. Pello Salaburu

Hondakin kutsakorren emisio erritmoak ez du **ekosistema** naturalen asimilazio gaitasuna baino handiagoa izan behar. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gure planetako **ekosistema** zaharrenetakoak eta biodibertsitate handienekoak dira koralezko arrezifeak. Berria - Gaiak

Urarekin eta hezeguneekin loturiko **ekosistemak**. Berria - Gaiak

Basoen desagertze prozesuak asko kezkatzen ditu adituak, **ekosistema** aberats askoren gordelekua direlako. Berria - Gaiak

Ekonomia azpisistema ireki bat dela, baina beti ere itxia den **ekosistema** mugatu batean txertatutakoa. Iñaki Heras

Giza ekonomia **ekosistema** global mugatu baten azpisistema bat denez, eta **ekosistema** hori ez denez hazten, ezta garatzen denean ere, begi-bistakoa da ekonomiaren hazkundea ezin dela epe luzeetan zehar mantendu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekosistema urbanoaren kate trofikoa. Patxi Iturritegi

Etorkizuneko **ekosistema** ez du ziurtatzen [Europako konstituzioak]: Ingurumena eta kontsumitzaileen eskubideak ez ditu bermatzen. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Begiek ez dute begiratzen dutena besterik ikusten, eta euskal kostaldeko espezieak eta itsas **ekosistema** ezagutzen ez baditugu, badirudi hemen ezer ez dela gertatu. Berria - Euskal Herria

Kanariar Uharteak bitarteko uretan zein haratago itsas **ekosistema** aberatsa dago, hots, arrantzarako aukera ederra. Berria - Mundua

Landaketak, larreak, basoak, ur-**ekosistema**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

4 irud/hed

Oso garrantzitsua da **ekosistema** osasuntsu bat sortzea guraso, haur eskola, hezitzaile eta haurraren artean. Berria - Euskal Herria

Beraiek gure **ekosistema** mediatikoaren adierazgarri dira. Txema Ramirez de la Piscina

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta ekosistema (5); **eta ekosistemak** (3)

---

ekosofia *iz* ekologia eta filosofia elkartzen dituen jakitatea.

*Humanus*aren aldetik kultura oro *oikos*aren jakitatea edota **ekosofia** da. Askoren artean

Hori guztia dela eta, kultura oro **ekosofia** da, gizakion bizilekuaren **ekosofia**. Askoren artean

Oinarriak jarri behar ditugu **ekosofia**, gure etxeko jakinduria, gure bizitoki globalaren eta gure bizileku bereziaren jakinduria sortzeko asmoz. Askoren artean

Badugu lan itzela, baita miresgarria ere, habitat honen **ekosofia** deskribatzeko, kultura honetan bizitzeko. Askoren artean

---

ekotono *iz* bi ekosistemen arteko trantsizio eremua.

Organismo dentsitate eta dibertsitate handiagorako joera dute **ekotonoek**. Berria - Gaiak

---

ekoturismo *iz* turismo ekologikoa.

Ekoturismoa, berez, ingurumena errespetatzen duen turismo motari deitzen zaio. Berria - Gaiak

Natura baliabideak «neurrigabe» erabili behar ez izateko sortu zen **ekoturismoa**. Berria - Gaiak

Azken datuen arabera, bost turistatik bat joaten da bioaniztasun aberatsa duten herrialdeetara **ekoturismoa** egitera. Berria - Gaiak

Ekoturismoak ingurumenari egiten dion kalteaz ohartarazi dute adituek. Berria - Gaiak

«Turismoaren multinazionalen hatzaparretatik haratago», herri txiki hauek lantzen duten **ekoturismoa** Brasilen eta handik kanpo ezagutarazteko balio izan die Internetek. Berria - Harian

---

ekozentriko *izond* ekologismoaren barnean, naturaren beharrak gizakiaren beharren gainetik jartzen dituena.

Ekologismoaren barruan bi joera daudela diote: antropozentrikoa eta **ekozentrikoa**. Berria - Gaiak

---

ekran *iz* pantaila.

Hiru urtez zortzi milioi erreferentzia argazkitan hartuak izanen dira ordenagailuko **ekranean** irakurtzeko. Herria

Hiru urtez zortzi milioi erreferentzia argazkitan hartuak izanen dira ordenagailuko **ekranean** irakurtzeko. Herria

Ez da ohikoa, eta liluratuta eman nituen ilunabarraren osteko ordu haiek **ekranaren** aurrean, gertaeratik beragatik baino, auzitegian euskaraz ari zenaren mintzoagatik. Iñigo Aranbarri

Gordintasun berdearen erdian, telebista **ekran** bat: EITB. Iñigo Aranbarri

---

ekrino *izond* izerdi guruinez mintzatuz, izerdia hodi moduko batzuen bidez azaleratzen duena.

Izerdi **ekrinoak** ez du usainik, baina gorputzak baditu izerdiguruin apokrinoak ere, besapeetan eta genitalen aldean kontzentratuak. Irene Aldasoro

Guruin **ekrinoak** dira izerdi-sortzaile handienak; badira bi milioi giza gorputzean. Irene Aldasoro

---

ektara ik **hektarea**.

---

ekuador ik **ekuatore**.

---

ekuadoretar ik **ekuadortar**.

---

ekuadortar *(orobat **ekuadoretar** g.er.) izlag/iz* Ekuadorkoa, Ekuadorri dagokiona; Ekuadorko biztanlea.

Dora Angulo 40 urteko emakume **ekuadortarra** zen, eta Antsoain zuen bizitoki. Berria - Euskal Herria

Ekuadortarra da Suarez, eta duela lau urte ailegatu zen Nafarroara. Berria - Euskal Herria

Ekuadortarrak baitira etorkin gehienak Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Edadeko andre batek besoaren ondoan lokartzen zaion hiru urteko **ekuadortar** bati kariñoa hartzea beste erremediorik ez dauka. Unai Elorriaga

Jackson Quiñonez **ekuadortarrak** Espainiako naziotasuna jaso berri du. Berria - Kirola

26 milioi venezuelarrez, 15 milioi **ekuadortarrez**, 12 milioi perutarrez eta abarrez ari gara hitz egiten. Berria - Mundua

Ekuadortarren Bizkaiko Elkartea. Berria - Harian

---

ekualizazio *iz* soinuez mintzatuz, erreprodukzio maiztasuna egokitzea, jatorrizko maila berdintzeko.

Efektuak baino gehiago, **ekualizazio** ezberdinak erabili ditut, betiere abesti bakoitzaren araberakoak. Berria - Kultura

Mixel Etxegarai bezala **ekualizazioaren** bidez ahotsa distorsionaturik kantatzen zuen klandestino garaia, Parisen Paco Ibañezekin eginiko diskoa, erromantzeak, joan-etorriak, orain gutxiko *ausencia*... Berria - Kultura

---

ekuator ik **ekuatore**.

---

ekuatore *(orobat **ekuator** g.er.) iz* **1** bi Lurraren poloetatik distantzia berera dagoen irudizko zirkulua, Lurra iparraldeko eta hegoaldeko hemisferioetan banatzen duena; zirkulu horri dagokion eremua.

Paraleloak, **ekuatorearen** planoarekiko paralelo diren lurraren gainazaleko zirkuluak dira. Joseba Sarrionandia

Europa hegoaldetik igaro ostean, **ekuatorea** zeharkatzen dute, Pazifikora iristeko. Berria - Gaiak

Bantua da **ekuatore** azpiko Afrikako herriek -batez ere kafreek- hitz egiten duten hizkuntza multzoa. Isabel Arrigain

Breningek azaldu duenez, basamortutzearen arazoa **ekuatoreko** lurretan sortzen da. Berria - Gaiak

Ekuatoretik ateratako berotasun horrek tropikoaz azpiko eremuetan hodeiak eta euria sortzea galarazten du. Berria - Gaiak

Zaila irizten dio egun Afrika eta Asiako **ekuatorean** bizi diren tximinoen senideak Europan aurkitzeari. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik **ekuatorial**)

Gehien bat euskaraz du kantatzen, doi bat inglesez ere, bai-eta **Ekuatore** Gineako fang hizkuntzan. Herria

Igandea izan zen egunik txarrena, New York **ekuatore** -oihan batean galdutako biztanle-gune bat bihurtzen den une ia-ia arnasa ere hartu ezin den horietako bat. Oskar Arana

Tom abaildurik zebilen -horixe zen dena-, eta Harry hari bihotz ematen saiatu zen soilik, haren haize-oihalei haize apur bat ematen **ekuatore** -bareuneetatik ateraraztearren. Oskar Arana

3 *ekuadore alde* *(orobat* ***ekuadorealde*** *g.er.)*

Ekuatore aldean , eguerdian oso gutxi aldatzen da, beti bero ematen du. Pello Zabala

Zenbat eta **ekuatore aldetik** urrunago, orduan eta nabarmenago nozituko ditugu urtaroen alde ezberdinak: alegia, zenbat eta **ekuatore alderago** , orduan eta alde eskasagoa neguaren eta udaren artean, biak berdintsu, aldaketa xume bat soilik, bien artean. Pello Zabala

Baina nire aurpegia ikustean zera ulertu zuen: banindoala auskalo nora, **ekuatore aldeko** sabanetara, Eskandinaviako estepetara betiko ezkutatzera, zer dakit nik. Fernando Rey

Ekuatore aldeko ludiaren gerriko horretatik ikus daitekeen elur iraunkorrekiko mendi bakar altua, Kilimanjaro kaskoa da, Tanzanian. Pello Zabala

4 irud/hed

Ilargiaren **ekuatorean** -127 gradutik 120 gradura arteko tenperatura izaten da. Berria - Gaiak

[Merkurio] planetaren **ekuatorean** tenperaturak 450 graduraino irits daitezke. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekuatore aldean (3); **ekuatore aldeko** (3); **ekuatore ginea** (8); **ekuatore gineako** (24); **ekuatore gineako presidente** (4); **ekuatore gineako presidentea** (3); **ekuatore ginean** (14); **ekuatore ginean estatu** (6); **eta ekuatore** (6); **ustez ekuatore ginean** (3); **zenbat eta ekuatore** (3)

---

ekuatorealde ik **ekuatore 3**.

---

ekuatorginear *izlag/iz* Ekuatore Gineakoa, Ekuatore Gineari dagokiona, Ekuatore Gineako herritarra.

Epaitutakoak zortzi hegoafrikar, sei armeniar eta bost **ekuatorginear** dira. Berria - Mundua

---

ekuatorial *izond* ekuatorekoa, ekuatoreari dagokiona. ik **ekuatore 2**.

Amerika eta Afrika hurbilduz gero, esate baterako, Afrika **ekuatoriala** Antilletan ondo sartuko da, eta Brasilgo lurmuturra ere ondo sartuko da Gineako golkoan. Joseba Sarrionandia

Une hartan frantziar Afrika **ekuatorialean** Txad probintziako gobernadorea Afrikako arraza beltzeko frantziar hiritar bat zen. Iñaki Mendiguren

---

ekuatoriar *izlag/iz* ekuadortarra.

New Yorkeko Bronx auzoaren itxura hartu zuen ordubete inguruz Bilboko Plaza Biribilak: afrikarrak, txinatarrak, **ekuatoriarrak** ... kultur aniztasunaren irudi bihurtu zen. Berria - Euskal Herria

Arratsaldeko seietan egina zegoen hitzordua eta, minutu batzuk lehenago, Kale Nagusian zapiak saltzen egoten diren **ekuatoriarrak** korrika ari ziren, ezkutaketan jolasean ibiliko balira moduan. Berria - Euskal Herria

---

ekuazio **1** *iz* matematikan, kopuru ezagunen eta ezezagunen arteko berdintza baldintzatua.

Aljebran, berriz, **ekuazioak** ebaztea da kontua, bila gabiltzan zeraren izatasuna aintzat hartu gabe. Jon Muñoz

Ekuazio bat ebazteko formulak bilatzea zen kontua. Jon Muñoz

Ekuazioa xuxen betetzen zen soluzio diluituetan; inor ez bide zen arduratu soluzio kontzentratuetan, likido polar puruetan eta azkenon arteko nahasteetan egiaztatzen. Juan Garzia

Zelako ezagutza lortzen dugu, esaterako, masa eta energia kontzeptuak erlazioan jartzen ditugunean e=mc2 **ekuazioan** ? Askoren artean

Ezezagun askoko **ekuazio** askoko sistemak. Jon Muñoz

"ax2 bx c=0" idazten badut, bigarren mailako **ekuazioa** da hori. Jon Muñoz

Haren bidez jakin zen hirugarren mailako **ekuazioa** erradikalen bidez ebatz zitekeela. Jon Muñoz

Bera izan zen lehena hirugarren mailako **ekuazioaren** ebazpen osoa aurkezten. Jon Muñoz

Bi ezezaguneko bi **ekuazioko** sistema. Jon Muñoz

Bosgarren mailako **ekuazio** aljebraikoak ezin dira erradikalen bidez ebatzi! Jon Muñoz

Ekuazio baten erro kopuruari zegokion galdera orokor bat proposatu zen. Jon Muñoz

Halakoa zen, hain zuzen, kuboaren duplikazioaren **ekuazioa** ! Jon Muñoz

Fisika klasikoaren ezein **ekuaziok** ez dauka denbora-parametrorik. Juan Garzia

Gertatzen da harreman hori izugarri konplexua dela, eta **ekuazio** batean errenditu ezina. Bernardo Atxaga

2 (izenondoekin)

Ekuazio aljebraikoak erradikalen bidez ebazteko bidea. Jon Muñoz

Ekuazio diferentzialen integrazioa. Jon Muñoz

Ekuazio diofantiarrak. Jon Muñoz

Hiru mende itxaron behar izan zen, harik eta 5. mailako **ekuazio** orokorra erradikalen bidez ebazterik ez zegoela Abelek frogatu zuen arte. Jon Muñoz

Haren formulak emateaz gainera, -berez, ez zuten zenbait **ekuazio** partikularretarako baizik balio-, beste batzuk ere adierazten zituen. Jon Muñoz

Arbelean idatzi nuen **ekuazio** sonatua, eta Enricori azaldu nion nola ari zen han idatzirik zegoena xuxen-xuxen gertatzen. Juan Garzia

Berrogei aldagaiko **ekuazio** arriskutsua. Fernando Morillo

Ekuazioa sinplea zen, eta Andrescuk zailtasunik gabe askatu zuen. Iban Zaldua

3 (hitz elkartuetan)

Erradikalen bitartez ebatzi beharreko problema horiek **ekuazio** mota partikular bati bakarrik dagozkiola. Jon Muñoz

Bi **ekuazio** -segida garatu zituen ziztuan arbelean. Fernando Morillo

4 berdintza.

Aipatua dut ja **ekuazio** magikoa: apezgoa=zelibatua. Piarres Aintziart

Errepublikanoak beren **ekuazioak** honela hasten dira planteatzen: "Demagun n=gizon zuria". Xabier Olarra

Norbaiti argiago esan behar baldin bazaio, "euskara=artaburu hizkuntza" **ekuazioa** betetzea dakar horrek. Koldo Zuazo

5 irud/hed

Neurri ezberdin horietan bakoitza non gauden kokatuta ikusten jakitea da zorionaren **ekuazioa** ebatzi ahal izateko lehen pausoa. Pako Aristi

Hor zegoen koska, korapilo itsua, inkognita edo ezezagun erraldoi eta beldurgarri bat zuen **ekuazioa** planteatzea zen, baina ez zegoen beste irtenbiderik. Jon Alonso

Asmatu ezineko **ekuazioa** zait zergatik deitzen zaien batzuei olerkari eta besteei poeta. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bigarren mailako ekuazio (3); **bigarren mailako ekuazioa** (4); **da ekuazioa** (3); **ekuazio aljebraiko** (4); **ekuazio aljebraikoa** (3); **ekuazio aljebraikoak** (3); **ekuazio aljebraikoei** (3); **ekuazio aljebraikoen** (3); **ekuazio bat** (9); **ekuazio batek** (4); **ekuazio baten** (4); **ekuazio guztiak** (3); **ekuazioa da** (4); **ekuazioa erradikalen** (3); **ekuazioa erradikalen bidez** (3); **ekuazioak erradikalen** (3); **ekuazioak erradikalen bidez** (3); **ekuazioen bidez** (4); **eta ekuazio** (4); **eta ekuazioak** (3); **hirugarren mailako ekuazioa** (5); **hirugarren mailako ekuazioaren** (4); **mailako ekuazio** (12); **mailako ekuazioa** (14); **mailako ekuazioa erradikalen** (3); **mailako ekuazioak** (7); **mailako ekuazioaren** (5); **mailako ekuazioen** (3)

---

ekumeniko 1 *izond* unibertsala.

Erromatar gobernua berehala ohartu zen dirugintza **ekumenikoak** tresna politiko gisa zuen balioaz. Iñaki Mendiguren

Frantziar iraultzaileek, beren egutegi sekular berria ezartzen hain osoro huts egin zutenek, arrakasta **ekumenikoa** izan zuten beren pisu eta neurri berriekin. Iñaki Mendiguren

Judatik Nabukodonosorrek deserritutakoen babiloniar gatibualdian, sortzen ari zen erlijio nagusi batentzat inkubagailua izan zen hiriburua, eta han ikuspegi estuaren ordez ikuspegi **ekumenikoa** hartuz bere arima aurkitu zuen. Iñaki Mendiguren

Japonia eta Txinako mendebaldartze-mugimenduak biak aurkitu ziren bertako erregimen **ekumeniko** ongi ezarria bukatu eta ordezteko zeregin ikaragarriaren aurrean. Iñaki Mendiguren

Lehen puntua, Mendebaldeko Zibilizazio mehatxatu baten alde egon zitekeena, errusiar nazionalismoa komunismo **ekumenikoan** nahastuta egotea zen. Iñaki Mendiguren

Erromatar eredu sekular horretan oinarrituz, hazten eta zabaltzen ari zen eliz elkarteak aldi berean tokikoa eta **ekumenikoa** zen antolaketa eta korporazio-sentipena eraiki zituen. Iñaki Mendiguren

Ez parroki lege bat estatu barbaro batentzat sortzea, baizik eta lege **ekumeniko** bat sortzea, estatu unibertsal siriako berrezarri baten premietarako balio behar zuena. Iñaki Mendiguren

Lege-uniformetasun **ekumenikoa** ezarri zuen kolpe batean. Iñaki Mendiguren

Tsin She Huang-tiren egintzaren ondorioa Gizarte Sinikoa ikus-hizkuntza uniforme batez hornitzea izan zen, eta honek, mintzairak elkar ulertu ezinezko dialektotan banatu arren, komunikazio **ekumenikoaren** baliabide izaten jarraituko zuen irakurtzen edo idazten ikas zezakeen gutxiengo txikiarentzat. Iñaki Mendiguren

Hans Küng-ek bost paradigma bereizten ditu kristautasunaren historian: 1) hasierako paradigma judu-apokaliptikoa, 2) Antzinateko **ekumeniko**-helenista, 3) Erdi Aroko katoliko-erromatarra, 4) Erreformako ebanjeliko-protestantea eta 5) Modernitateko arrazionalista eta progresista. Patxi Altuna

Elizen kontseilu **ekumenikoak** hamar urte hautako sail bat hasia du: "Elizak indarkeriaren kontra". Herria

2 kontzilioez mintzatuz, apezpiku katoliko guztiei dei egiten zaiena.

Kaltzedonian (K.o. 451) egin zen Laugarren Kontzilio **Ekumenikotik** igarotako hamabost mendeetan. Iñaki Mendiguren

Vatikano II. kontzilio **ekumenikoaren** testoak argitaratu ziren duela 35 urte, ainitz hizkuntzetan. Herria

Kontzilio **ekumenikoaren** idazkien euskaratze lanen berri aurki dezakegu. Herria

---

ekumenisma ik **ekumenismo**.

---

ekumenismo *(orobat **ekumenisma** g.er.) iz* kristau eliza guztien batasunaren alde egiten duen doktrina.

Ekumenismoaren alde eta «askatasun anarkikoaren» kontra egin du Ratzingerrek Benedikto XVI.a bihurtu zenetik. Berria - Gaiak

Ideia berri eta ofizialek parrokiko gazteak berotzen zituen: **ekumenismoa**, kolegialitatea, erlijio-askatasun printzipioaren adopzioa. Piarres Aintziart

Hau protestanta (luterianoa) izanez, esplikatu dauku nola **ekumenismoa** bizi zuen elgarren artean eta beren hiru haurrekin erlijioan, baita ere egun guziz bi hizkuntzetan hitz eginez. Herria

Horrek **ekumenismo** handiko ikusmuga zabal baterako sarbidea eskaintzen digu, gure tradizio propioaren interpretazio berria eta nagusiki europarra izan den kristautasunaren mugak eroso gainditzen dituena. *Self-defense* saileko irakaspenak praktikatzen, goiztiriak filmatzen, txinatar medikuntzako jin eta janekin moldatzen, Bibliaz eta **ekumenismoaz** jabetzen eta zizken aurka borrokatzen besteak beste. Joan Mari Lekuona

Benetako **ekumenismoa** gauzatzeko, baina, Eliza katolikoko hierarkia aita santua, dikasterioak, nuntzioak... traba bat da. Berria - Harian

---

ekumenista *iz* ekumenismoarena, ekumenismoari dagokiona; unibertsalismoari dagokiona.

Denek ez dituzte partekatzen Salamancako maisuaren entusiasmo hispano-**ekumenistak**. Joxe Azurmendi

---

ekuragarri *izond* baregarria, lasaigarria.

Hondarrean, supituki, amaigabeko argitasun lanbrotsu eta **ekuragarrian** da, hutsaren baitan hegan. Jose Angel Irigaray

---

ekuratu, ekura, ekuratzen da/du *ad* gelditu.

Amaren anaia lehen munduko gerlara abiatu zen 1915ean, adinean zeuden herritar frankorekin, hala nola Piarres Harrondo, eta justuki Paristik Verdunera zihoan trena San Florentinen **ekuratu** zenean zaldiak kargatzeko, osabak ihes egin zuen. Itxaro Borda

---

ekuri ik **ekuru**.

---

ekuru *(orobat **ekuri**) adlag* geldirik; bare, lasai.

Handik harat, apezak liburu hura bere egiten zuela, amak iragarri bezala joan ziren gauzak, nik uste baino hagitzez ere trankilago eta **ekuruago**. Joan Mari Irigoien

Bihotza **ekuru**, zorionekoa nintzela iritzi nion. Edorta Jimenez

Barruko bakez eta bihotzez **ekuru** etzan nintzen kamainan. Edorta Jimenez

-Egon **ekuri**, ez da deus ere. Aitor Arana

2 (izenondo gisa) geldia, lasaia.

2 (izenondo gisa) gordin, lasaia.

Hiru kontinentetako arraza gorbizien mestizajearen emaitza izan da gizamota espainola, tenperamentu inpromptutsua, kartsu sinestean, ez lan eta estudiozale **ekuru**, egonarriko, baizik matxin bihurri, grinatsu, liskarti. Joxe Azurmendi

---

ekurugaitz *adlag* ezin lasaiturik.

Nola gazte denak, ondorez, leku eman behar izaiten baitie bai kemenari eta bai ezinegonari, bizitzari berari ere leku eman ahal izaiteko, hala ibili nahi izaiten nuen nik harat eta honat, itsasotik itsasorat eta portu batetik bertzerat, geldigaitz eta **ekurugaitz**. Joan Mari Irigoien

Zeren, harako bidean, guztiak joan baitziren, ohi ez bezala, isilik, urduri eta **ekurugaitz**, barren-kezka batek erraiak janen balizkie bezala. Joan Mari Irigoien

Kontua da ezen Bolognatik jalgi behar izan genuenean, gau haietarik bat eman nuela, osabaren zurrungen artean, erreus eta **ekurugaitz**. Joan Mari Irigoien

---

ekurututasun *iz* baretasuna, lasaitasuna.

-Zuen ontzian izandako artilleroak gurean dira orain -esan zuen, begietan itsaso beteko **ekurutasuna** erakutsiz. Edorta Jimenez

---

ekzema *iz* larruazaleko gaitza, orbain gorriak eta azkura biziak ezaugarrritzen dutena.

Gizonak **ekzema** txiki bat zuen bernan, eta txakurrak askotan usaintzen zion. Berria - Gaiak

Loa galtzen duk, jangura galtzen duk, ultzera edo **ekzema** ateratzen zaik, eta pauso handi bat ematen duk behin betiko enpresa-neurosirantz. Juan Garzia

Umeak rinitisa, **ekzemak**, edo jaki jakin bati alergia izatea, esaterako. Berria - Gaiak

Gipuzkoan artzain asko mendi eske dabil lurren faltagatik, ardien aurpegiko **ekzema** gaitzaren arazoagatik. Berria - Euskal Herria

---

ekzitatu ik **eszitatu**.

---

elaberri ik **eleberri**.

---

elaberrigile ik **eleberrigile**.

---

elaboratu, elabora, elaboratzen **1** du *ad* egin, landu.

Septentrio **elaboratzen** ari nintzen garaietan, Montreal eta Hendaiaren artean bizi nintzen garai haietan, geografia poetiko baten bila nenbilen, poetika berri baten bila. Ana Urkiza

Berak erakusten du horrela nola bihur daitekeen gertaeren jarraitasun bat, bera agertzen den modu horretantxe, diskurtsoaren objektu, nola erregistratu daitekeen, deskribatu, azaldu, nola **elaboratua** izan daitekeen kontzeptuetan eta nola eman dezakeen hautaketa teoriko baterako aukera. Xabier Arregi

Eta adimena, sentimenen bidez jasotako informazioa adigarriki **elaboratzeko** gaitasun aktiboa, hots, pentsatzekoa. Askoren artean

2 (era burutua izenondo gisa)

Produktu **elaboratuak** itsasoan hondoratzea. Edorta Agirre

Gola zen estrategia **elaboratuaren**, desira aseezinaren, erritualizazio ondo markatuaren amaiera, salbuespen puntua, joko guztiari zentzua eta gozamena ematen ziona. Joseba Zulaika

Garcilaso de la Vegarenak oroitzen ditut gogokoenen artean, eta batez ere Bécquer-enak, batzuk zein besteak maitasun-adierazpen sutsu bezain estilizatuak, hunkigarri bezain **elaboratuak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Pasadizo oso **elaboratuen** bidez mintzatzen omen zen bere iraganaz. Joxean Agirre

Aldiz, *utilitas* eta, batez ere, *venustas* ezaugarriekin erlazionatutako arazoak diskurtso ez hain **elaboratu** eta nahasiagoaren eremuan sartzen dira. Santiago Iruretagoiena

---

elaborazio *iz* egitea, lantzea.

Kontsideratzen da diskurtsoak eta euren ordenazio sistematikoa, askotan bihurria den **elaborazio** baten azken egoera besterik ez direla. Xabier Arregi

Jardute diskurtsiboak ez du bat egiten berak eragin dezakeen **elaborazio** zientifikoarekin. Xabier Arregi

Kontua ez zen batasun horiei euren balio osoa ukatzea edo euren erabilpena alboratzea; baizik eta erakustea, zehazki definituak izateko, **elaborazio** teoriko bat eskatzen dutela. Xabier Arregi

Kontzeptuen sakabanatze-legea bilatzean ez du **elaborazio**-prozesu guztien kontu ematen, ezta aurak ager daitezkeen kate deduktibo guztiena ere. Xabier Arregi

---

elai *iz* enara.

Martxoaren erdirako, kukuari bidea eginez edo, enara, ainara, **elaia** edo eliztxoria, hemen ohi da, banaka batzuk aurrena, bikotetxo bat edo bi, eta geroxeago, habia joan den urteko tokian dagoela ikusitakoan, laster jotzen dute beste lagunen bila. Pello Zabala

Ez irrati eta gutxiago telebistarik baserrira iritsi gabe bizi zirenean, **elai** buila handi horiek ziren abisu: Enarak lurretik urrian dabiltzanian, euria urrian. Pello Zabala

Freudentzat bada garaia erlijioa baztertu eta zientziari ekiteko, zerua aingeruei eta **elaiei** utziz. Markos Zapiain

---

elaire *iz ipar* hizketan egiten den ezaguna, azaleko adiskidea.

Ez nuen hain **elaire** baina banekien gizon gazte gurbil eta errotik seriosa zela. Daniel Landart

Janinak han, Chadefaud jauna **elaire** zuen. Itxaro Borda

Sebasek Jean Marie **elaire** baino gehiago zuen, asteburuetan elkarrekin pilotan jostatzen baitziren, edozein herritan antolaturiko txapelketen karietara. Itxaro Borda

---

elaka ik **eleka**.

---

elakatu ik **elekatu**.

---

elamdar *izlag/iz* antzinako Elameko erreinukoa, Elami dagokiona, Elameko herritarra.

Elamdar gudariak zaldi eta gurdietan datoz, prest dituzte geziak. Elizen arteko biblia

Nazio bat ere ez da izango munduan ihesi joandako **elamdarren** bat hartuko ez duenik. Elizen arteko biblia

Arfaksadi mendialdeko eta Eufrates, Tigris eta Hidaspe ibai-ertzetako bizilagunak bildu zitzaizkion, bai eta **elamdarren** errege Arioken lautadakoak ere. Elizen arteko biblia

Baditugu gurekin partiar, mediar nahiz **elamdarrak** ; bai eta Mesopotamian, Judean nahiz Kapadozian, Ponton nahiz Asian bizi direnak ere. Elizen arteko biblia

Epaileek, ordezkariek, pertsiar funtzionarioek; Ur, Babilonia eta Susako **elamdarrek** . Elizen arteko biblia

Bizia kendu nahi dieten etsaien aurrean izu-ikaraz beteko ditut **elamdarrak** . Elizen arteko biblia

---

elamita *izlag/iz* elamdarren hizkuntza.

Hiru eratan transkribatu zuten idazkera kuneiformearen hiru moldapen desberdinetan, hiru hiriburu inperialetako hiru hizkuntzen adierazpide zirenetan: **elamita** Susarentzat, medo-pertsiera Ekbatanarentzat, eta akadiera Babiloniarentzat. Iñaki Mendiguren

---

elantxobetar *izlag/iz* Elantxobekoa, Elantxoberi dagokiona, Elantxobeko biztanlea.

Jule Renteriak gorderiko lanekin osatu du liburua Igone Etxebarriak, liburuaren apailatzaileak, eta *Izartu euskaldunak!* ***Elantxobetar*** *baten olerkiak eta artikuluak* izenburuarekin eman du argitara, Labayru Ikastegiaren *Sutondoa* bilduman. Berria - Kultura

---

elas ik **helas**.

---

elastika *iz* **

Edo cadillac beilegiaren erosteko **elastikaz** baturik dolar orlegi metak. Itxaro Borda

---

elastiko[1] **1** *iz* alkandoraren azpian erabiltzen den puntuzko jantzia, leporik gabekoa. ik**kamiseta**.

Elastikoa ez, beste jantzi guztiak kendu nituen eta halaxe sartu nintzen ohean. Aitor Arana

Alde batera erortzen da izara; **elastikoa** eta slipa baizik ez ditu jantzita. Oskar Arana

Izerdiak blai eginda zeukan zilborra doi-doi estaltzeko luzera zuen **elastiko** zuria. Josu Landa

Gona motzak agerian jarritakoa eta **elastiko** estuak nabarmendutakoa begiesten ari zelarik, ordu bietako kanpaiak aditu zituen. Migel Angel Mintegi

Aurreko batean, gogoratu du, Bob Marley-ren **elastiko** bat ekarri zion. Jokin Muñoz

Nikeren logotipoa nabarmentzen zitzaion **elastikoaren** aurrealdean. Josetxo Azkona

Eguna epela zen ohi ez bezala, eta Nancy-k jean urdin batzuk eta kotoizko **elastiko** zuri bat zeramatzan. Oskar Arana

Gaur den hotzarekin T **elastikoa** bakarrik zeukan soinean. Gotzon Garate

Elastikoa izerditan blai utzi arte. Joan Mari Irigoien

Hamaika jertse, alkandora, blusa, atorra motz, **elastiko** , **elastiko** tirantedun zeuden han. Joxan Elosegi

Léa, ilea motza, jeansak eta txamarra, **elastiko** mahukarik gabea eta **elastiko** mahukaduna, kirol oinetakoak, Nike edo Doc Martens. Jon Muñoz

Nik bi barruko **elastiko** , hiru galtza pare, soineko bat, haren gainean gona bat, jaka bat, udako beroki bat, bi galtzerdi pare, zapata itxiak, buruko txano bat, lepo zapi bat eta beste gauza pila bat neraman. Josu Zabaleta

AVTko kide batek ere parte hartu nahi izan zuen koloreen saltsan, Espainiako banderaren koloreak zituen **elastiko** beltz bat jantziz. Berria - Harian

Zilborrean duela gutxi egindako piercing-a agerian uzten zion barruko **elastiko** beltz harekin. Antton Olano

Galtzerdiak, barruko arropak, kulero zangodunak, kulero motzak, pijamak, izerditzeko **elastiko** txanoduna, nylonezko zamarra. Oskar Arana

Dotore baino dotoreago azaldu ginen behingoz **elastiko** turistikoak alde batera utzita. Patxi Zubizarreta

2 kirola egiteko erabiltzen den alkandora modukoa, leporik gabekoa.

Lehenengo Bizkaiko Aldundiak eman zion dirua klubari, emakumeen taldearen eta beheko taldeetako **elastikoetan** eta lehen taldeko entrenamenduetarako **elastikoetan** Bizkaia jartzeagatik. Berria - Kirola

Fiterokoak Osasunako **elastikoarekin** jokatutako azken lehian. Berria - Kirola

Nerabe bihurtu aitzineko neskato garai bat, jean gorri urratuekin, Keds zuri marratuekin, eta Kansas City Royals-en **elastiko** batekin jantzia. Oskar Arana

Nik diotsot behin munduko futbol-txapelduna izan zela, eta taldearen **elastikoa** zuri-gorria dela. Edorta Jimenez

Honek tira egin zidan jertsetik, horrek alkandoratik, hark **elastikotik** , beste hark zapatatik, galtzerditik... Joan Mari Irigoien

Argentinako futbol-selekzioaren **elastiko** ofizial bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Realaren **elastikoa** edo atorra, 120 euro. Herria

Irten ginenean adineko emakume bat ikusi nuen Errealaren **elastikoa** jantzita, garai hartan hain ohikoa ez zena. Joan Mari Irigoien

Gabonak aldean, lagunarteko partida bat jokatzeko, **elastiko** zuri-gorri-berdearekin. Joan Mari Irigoien

Elastikoak eta galtza motzak zeramatzaten mutil guztiek, eta cricketeko txanbra irekiak eta gizonezkoen galtza luze grisak neskek, behealdea lotzeko kateorratzak jarrita. Koro Navarro

Ziurrenik, ohiko **elastikoarekin** jokatuko du. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Athletiken futbol- **elastiko** berriko Ketchup zarrastada dirudien horretaz aritzeko. Andoni Egaña

Marinel **elastiko** marraduna eramaten nuen, eta armairuan aurkitutako zapi gorri bat eraman nahi nuen lepoan. Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barruko elastiko (4); **beste elastiko** (4); **da elastiko** (3); **du elastiko** (7); **du elastiko txuri** (3); **elastiko bat** (14); **elastiko bat eta** (3); **elastiko batekin** (3); **elastiko eta** (5); **elastiko gorria** (7); **elastiko gorriarekin** (3); **elastiko marraduna** (3); **elastiko txuri** (7); **elastiko txuri urdina** (6); **elastiko zuri** (29); **elastiko zuri gorria** (11); **elastiko zuri gorriarekin** (9); **elastiko zuria** (3); **eta elastiko** (14); **izango da elastiko** (3); **jantziko du elastiko** (3); **soka elastiko** (3); **zituen elastiko** (3); **zuen elastiko** (5); **zuten elastiko** (3)

athleticen elastikoa (4); **bigarren elastikoa** (3); **duen elastikoa** (3); **eibarren elastikoa** (3); **elastikoa erantzi** (3); **elastikoa eta** (11); **elastikoa ez** (3); **elastikoa jantzi** (8); **elastikoa jantzi zuen** (4); **elastikoa jantziko** (4); **elastikoa jantzita** (8); **elastikoa janztea** (5); **elastikoa soinean** (7); **elastikoak saltzen** (3); **elastikoak saltzen** (3); **elastikoarekin jokatuko** (5); **elastikoarekin jokatuko du** (3); **elastikoko izena** (3); **eta elastikoa** (7); **eta elastikoak** (3); **eta elastikoak** (3); **osasunako elastikoarekin** (4); **osasunaren elastikoarekin** (3); **realaren elastikoa** (3); **taldearen elastikoa** (6); **taldearen elastikoa jantziko** (3); **zuen elastikoa** (4)

elastiko[2] 1 *izond* deformatu ondoren, lehengo forma berera berez bihurtzeko gai dena.

Soka **elastiko** bati lotutako helduleku bati tiraka. Irene Aldasoro

Nola deitzen da soka **elastiko** batez sabaira eta lurrera lotuta jarri duzun larruzko baloi hori? Koldo Biguri

Bola **elastiko** batek zuzen-zuzenean bola berdin batekin talka egiten badu, honi komunikatzen dio bere higidura osoa, eta beraz, bere egoera osoa. Ibon Uribarri

Jertse estuak eta praka **elastikoek** nabarmendu egiten zioten gorputzaren liraintasuna. Migel Angel Mintegi

Prostitutak, parte guztietakoak, irribarre behartuak musuan, soineko **elastikoez**, minigonez eta sujetadore koloretsuez. Paddy Rekalde

Ile mataza biltzeko zinta **elastiko** gorri iluna. Paddy Rekalde

Berdin jantzita zeuden, goitik beherako maila **elastiko** estuekin. Patxi Iturritegi

Bazen ohe **elastiko** maiztu bat -familia osoak gogoz erabiltzen zuen, besoak astintzeaz batera saltoka ibiltzeko-. Xabier Olarra

Zuntz **elastiko** ugari ditu dermisak. Irene Aldasoro

Zuntz **elastikozko** sare baten bidez. Irene Aldasoro

Altzairua baino hamar aldiz **elastikoagoa** baita hezurra. Irene Aldasoro

Bagina ehun leuna da, oso **elastikoa** eta malgua. Luis Elberdin

Keinu erabakior batez titia, **elastikoa** eta dentsoa, bere zorrotik atera zuen. Jon Alonso

Alde batera utzi behar dira egurrezko 20 xafla elkarri itsatsiz egindako eski ez- **elastikoak**. Berria - Gaiak

2 malgua.

Gizonen maitasuna **elastikoa** da. Lourdes Oñederra

Sokak ez, baizik eta maitale **elastiko** eta harrigarriak. Fernando Morillo

Pauso motel eta **elastikoz**, antxume-larruzko botin zolarik gabeak jantzita, Stalin mahaira hurbildu da. Felipe Juaristi

3 ekonomian, elastikotasuna duena.

Eskaria, beraz, epe laburrera, ez da batere **elastikoa** izaten. Koro Navarro

Hegoaldetik datorren lan-eskaintza ia mugarik gabe da **elastikoa**. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elastikoa da** (3)

---

elastikotasun 1 *iz* elastikoa denaren nolakotasuna.

material horiek beiraz eta bestelako zuntzez sendoturik, hezur naturala bezain produktu sendoak sortu dituzte, eta ia haren **elastikotasun** berekoak. Epe luzera, hainbat ondorio izaten ditu eguzkitan luzaroan egoteak: epidermisa eta dermisa mehetzea, **elastikotasuna** galtzea. Irene Aldasoro

Galtzariaren **elastikotasunak** berak erakusten du txikiagotze hori ez dela ohiko gauza. Koro Navarro

Material hauetan jelen propietateekin batera (**elastikotasuna**, gardentasuna...) betegarriaren propietate magnetikoak dauzkagu. Berria - Gaiak

Idazkera automatikoaren bat-batekotasuna, ahozkotasunaren **elastikotasunarekin** eta aukera aniztasunarekin jolasten zuena. Berria - Kultura

2 ekonomian, aldagai batean gertatzen den aldaketa beste aldagai bat aldatzen denean.

Zenbat eta handiagoa izan **elastikotasuna**, orduan eta gutxiago goratuko da prezioa. Koro Navarro

Elastikotasuna batetik beherakoa bada, inportaturiko bolumena handiagoa izango da, baina murriztu egingo da portugaldar inportazioen balio orokorra, eta Ingalaterra galduan aterako da. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Eskariaren prezio- **elastikotasunak** eskariaren ehuneko hazkundea neurtzen du, ondasun baten prezioa ehuneko bat jaisten denean. Koro Navarro

Industria-ekoizpenaren eta mundu-kontsumoaren lehengai- edukiaren beheraldi lasterraren ondorio da batez ere, edo, bestela esanda, eskariaren "errenta· **elastikotasunen"** ahultasunetik. Koro Navarro

· Prezioen egongaiztasuna, bestalde, eskaintzaren epe laburreko **elastikotasun** ezak ere indartzen du. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **prezio elastikotasuna** (4)

---

elasturi *iz ipar* berriketa; elokuentzia.

Egun batez, azkenean, auzoarekin joatea deliberatu zuen, eta emazte arrantzaleen **elasturiaren** aditzeak bai eta arraina enkantean saltzen ikusteak loriatu zuten. Elena Touyarou

Hiruzpalau hamarkada Paris aldeko lizeo pribatuetan irakasle higatu arren, etxeko hitza piztia kontrolagaitzaren pare eskapatzen zitzaion, eta bere **elasturiaz** damutzen zen. Itxaro Borda

Hor zuen gure gizon ixil eta bipil horrek, **elasturia** gozo bat biltzen berak ere lagunartean.Herriko laborarien **elasturia** xumea naukan Lafitte ezagutu artean euskara. Herria

Alde bat musuka ari zen Elena baina bazuen ere gaitzeko **elasturia**. Janbattitt Dirassar

-Jin bedi eta ikusiko dugu, ebaki zuen Fanchek Hoteleko kidearen **elasturia**. Itxaro Borda

-Zergatik jarri dute xapito hori hor, elizaren ondoan? -gizonak deblauki mozten zuen emaztearen **elasturia**. Itxaro Borda

Ezker ama, eskuin aita, ama isilik bezain **elasturian** sartua, dena zirto. Piarres Aintziart

---

elauso *iz* elur jauzia.

Bestalde bada ere mendizale bat, Asier Barbara, haatik hau gasteiztarra, Pirineo mendietan hil dena elur **elauso** batek eremanik. Herria

Mendi eta elur guneetako ofizioei interesatu dira: elur pisten prestatzaile, ixtripuetan sokorritzaile, aro aztertzaile, **elauso** haundietaz babesle.... Herria

---

elbarri 1 *izond* eritasun edo ezbeharren baten ondorioz ezin mugi daitekeela gelditzen dena. ik**herbal 2**.

Emakume itsu bati argia itzuli zion, eta Gubbioko beste emakume **elbarri** bat sendatu zuen. Askoren artean

Gubbioko hiritar batek ere bere semetxo **elbarria** santuaren hilobira otzara handi batean eraman zuen. Askoren artean

Agure xahar konkortua eta kasik **elbarria**, hurbildu eta harri bati egin dion bultza oinarekin. Koldo Izagirre

Bezero **elbarria** ez da, baina, gaitzituta dagoen bakarra. Karlos Linazasoro

Araudiaren kontra bada ere, men egiten die kondenatu **elbarrien** azken ilusio txikiari. Karlos Linazasoro

Le Mansko mirabe **elbarria**. Askoren artean

Ni, inorekin jolasten ez zuen haur **elbarria**, adineko gizon batekin jokatzen. Alberto Ladron Arana

Erregina Zuriaren begietara ni ez nintzen peoi ttipi, peoi **elbarri** bat baizik. Alberto Ladron Arana

Zaldunak seme bakarra zuen, jaiotzatik **elbarri** zena. Askoren artean

Hanka elbarriak moztu eta Parisen ia debaldean lortu zituen hanka erresortedunak paratu zituen. Pablo Sastre

Hanka batetik **elbarri** izateak ez zion indiarren bizitza herratua egiten asko lagundu. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Zuzenean niregana etorri behar zenuen! -esan zion amorruz, ordu erdi lehenago onik zegoen besoaren hondakin triste eta **elbarri** hari helduta-. Iñaki Mendiguren

Pilotak hautatzeko egunean, esku bakar batekin arituko dira, bi **elbarri** balira bezala. Berria - Kirola

2 (izen gisa)

Korrelazio handia aurkitzen dut animaliei eta **elbarriei** ematen zaien tratuan. Xabier Olarra

Zangorik gabeko **elbarri** bat mugitzen zen ohol gurpildun baten gainean. Koro Navarro

Hankagabearen kasuak baditu aztergai fisio-psikologiko ugari: **elbarriak** oraindik ere bi hanken existentzia bizi du garunean. Anjel Lertxundi

Ezin da **elbarria** bere zangoez baliatu, ez eta zentzugabea ere zuhur-hitzez. Elizen arteko biblia

Deabrudun askorengandik ateratzen ziren espiritu gaiztoak deiadarka, eta **elbarri** eta herren asko sendatzen ziren. Elizen arteko biblia

Hidropikoak eta **elbarriak**. Askoren artean

Langabetu, **elbarri** edo kanporatuei laguntzera zuzendutako programa sozialen multzoari. Iñaki Heras

Elbarriz bete dute barnetegi osoa. Koldo Izagirre

Nik, berriz, berdinik ez duen **elbarri** sendaezin bat asmatu diat, Bunbury izenekoa. Antton Olano

Elbarri makuluduna berriz etorri da gaur. Karlos Linazasoro

Buonuomo **elbarri** legenduna Fanon. Askoren artean

Salaketa Maria Amparo Herrerak egin du, Urdaibaiko **Elbarriak** Gizarteratzeko Elkarteko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Argentinako Mar del Plata-n jokatu diren **Elbarri** Zerebralen Munduko Txapelketan urrezko lau medaila irabazi ditu. Herria

3 (adizlagun gisa)

Erditze mingarria izan zen, eta, gainera, **elbarri** jaio zen haurra. Jose Morales

Elbarri zetzan Gubbioko andre bat, hiru bider Frantzisko dohatsuaren izenari dei eginik, bere gaitzetik libre eta sendaturik gertatu zen. Askoren artean

Garbitzen aritu ziren 50.000 langile **elbarri** gelditu ziren erradioaktibitatearen ondorioz. Berria - Gaiak

Diru-eskean hortxe izaten omen dute beren kalonjetza **elbarri** eta besamotz gelditzen direnak. Han Eneas zeritzan gizon bat aurkitu zuen, zortzi urte hartan ohatila batean etzana zegoena **elbarri**. Patxi Ezkiaga

Bunbury gizajoa zeharo **elbarri** dago. Antton Olano

Ez zen zutik edo eserita egoteko gai, gerritik behera guztiz **elbarri** eta indarge zegoelako. Askoren artean

Elbarri gelditukо naiz. Agurtzane Juanena

Nazionalak heldu zirenean baserriko sabaian ezkutatu zen, handik egunetara **elbarri** aurkitu zuten hantxe belar artean bertan, beldurraren beldurrez elbarritua. Joseba Sarrionandia

Saulen seme Jonatanek bazuen bi zangoak **elbarri** zituen seme bat. Elizen arteko biblia

Lurrean zimel eta tente bezain zurrun eta **elbarri** sentitzen zen itsasoko urek bustitako oholak zapaldu orduko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baziren bost hilabete hiriko gizon bat, Pedro izenekoa, guztiz **elbarri** ohean etzana zegoela. Askoren artean

Gubbio hiriko emakume batek bere bi eskuak oso **elbarri** eta ihartuak zeuzkan. Askoren artean

Elbarri zurrun dago. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan)

Eritegitik atera zenean eta umezurtz-etxean sartu, "Aitatxoren" ordenuz Sivakumar eskolara joaten hasi zen, **elbarri**-gurditxo batean. Gotzon Garate

Gaixo, gaizto edo **elbarri** rolak egiten dituztenei ematen dizkiete Oscarrak. Berria - Kultura

· Jesusek, haien gogoetak igarririk, beso-**elbarriari** esan zion: -Jaiki eta atera zaitez erdira. Elizen arteko biblia

5 irud/hed

Bere ibilera **elbarria** geldiarazi zuen nire lagun, nire anaia izanak. Aingeru Epaltza

"Bisuts urte, gaitz urte", batez ere, haurdunaldi edo ernarialdi gaizto, ume izate bihurri eta jaiotze **elbarri** asko sortzen omen direnekoa, gizakietan ala abereetan. Patziku Perurena

Mundu-ikusleen sortzaile-uste ustel horrek pentsamendua putzu batean kirastera kondenatzen du, begizkoak jotako pentsamendu **elbarri** bat dakar mundura. Ezin dugu hiruretako bakar bat ere galdu, bestela gure izaera **elbarri** geratuko da! Iñaki Segurola

Hitzak, lekuz kanpoko hitz **elbarriak**, inoren hitzak, horra orduek eta mendeek utzi zioten miseriazko hondarra. Juan Garzia

Argimutilaren aldamenean kobrezko **elbarri** koloka bat jartzen zuten; albo batera okerturik zegoen, eta argizari guztia isurtzen zuen handik, ez etxeko jauna, ez etxekoandrea, ez zerbitzariak horretaz konturatzen ez zirela. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

besoa elbarri (3); **besoa elbarri zeukan** (3); **elbarri bat** (21); **elbarri baten** (3); **elbarri eta** (13); **elbarri gelditu** (3); **elbarri utzi** (6); **elbarri utzi zuen** (3); **elbarri zegoen** (3); **elbarri zeukan** (3); **elbarri zeukan gizon** (3); **elbarri zituen** (7); **elbarria ez** (4); **elbarria hil** (3); **elbarria larunbatez** (4); **elbarria larunbatez sendatua** (3); **elbarria zen** (3); **ere elbarri** (3); **esan zion elbarriari** (5); **eta elbarri** (12); **eta elbarria** (4); **eta elbarriak** (4); **eta elbarriei** (5); **lagun elbarri** (3); **seme elbarria** (3); **zen elbarri** (3); **zion elbarriari** (5)

---

elbarrigai *iz* elbarri izateko gaia.

-Ba al duzu **elbarrigairik**? Patxi Zubizarreta

---

elbarrigarri *izond* elbarritzen duena.

Adibidez, espondilartritis ankilosanteak, bizkarrezurreko gaixotasun oinazetsu eta **elbarrigarria** oso, ehun bider inguru aukera gehiago ditu agertzeko genotipo jakin bat daukaten subjektuetan besteetan baino. Juan Garzia

---

elbarrigile *iz* **

Laster, Zaita iritsi zen, **elbarrigilea**. Patxi Zubizarreta

Kalezuloko auzo asko ordurako bertaratuak ziren, besteak beste Jada okina eta Zaita **elbarrigilea**. Patxi Zubizarreta

Meharra zen eta, jilaba maiztu batez jantzirik egon arren, **elbarrigileak** esan bezala, gorpuzkera itxurosoa eta duina zuen. Patxi Zubizarreta

Elbarrigileak Saidna Al-Husainen meskitara egin zuen, urrats ttiki lasaietan. Patxi Zubizarreta

---

elbarritasun **1** *iz* higikortasunaren edo sentiberatasunaren galera. ik **perlesia**.

Hankagabe bat bere **elbarritasunaz** ahanzterainokoa, ederra da gero! Anjel Lertxundi

Elbarritasunak haginkada txikietan gorputz zorigaiztoko hori ezintzen duen heinean, eriaren inguruko pertsonak bihurtzen dira makulu, esku, beso, hanka, begi, mihi, belarri. Jon Alonso

Elbarritasunik gabeko eskekoa hutsaren hurrengoa da. Patxi Zubizarreta

Noiz edo noiz galdegin egiten zien zertan ziren haien **elbarritasunak**, eta gisa honetan zuzentzen zitzaien: "Eta, zer moduz itsutasuna?", "Eta hi, zer moduz herrenarekin?". Patxi Zubizarreta

Eskekoen eskariz, **elbarritasunak** sortzen espezializatu zen. Patxi Zubizarreta

Gaixoa, ordea, bere lanak bukatu eta, ez bide zen bere **elbarritasunaz** gogoratu, eta jaikitzen hasi zen. Anjel Lertxundi

Elbarritasun bat zeukan arren oso ongi ibiltzen zen mendian. Agurtzane Juanena

Adrian oso astuna jartzen duk krokodiloaren kontu horrekin, eta gehiegi edaten dik, eta desastre bat duk, baina berak sufritu egiten dik, ezin dik gainditu bere **elbarritasuna**, eta lagun bezala berarekin egon behar diagu. buruko gaitzak oso kontuan hartu beharrekoak direla, munduan, **elbarritasun** gehien eragiten duten gaitzak direlako. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egungo dirulaguntza sozialen aldean ekimena baldintzarik gabeko laguntza izango zen, hau da, ez litzateke izango ez adina, **elbarritasun** fisiko edo psikikoa, langabezia, edo antzeko giza egoera jakin batzuei loturiko laguntza. Iñaki Heras

Haren helburua, gutxieneko mailara iristen ez ziren altzairugintzako langileei erretiro eta **elbarritasun** duina izateko pentsioak iristea zen. Berria - Ekonomia

Gaixotasunak heriotza eragiten ez duten arren, «**elbarritasun** larriak» eragiten dituzte. Berria - Gaiak

Elbarritasun erabatekoa eta iraunkorra zuen Gorostidik lehendik, 1993ko apirilean Cabo Verden legionella harrapatu eta 55 egunez koman egon zenetik. Berria - Euskal Herria

Compañía Vascongada de Segurosekoekin tirabiretan, erretiro aurreratua edo **elbarritasun** osozkoa lortu ezinik. Iñaki Iñurrieta

Buruko gaitza du, %67ko **elbarritasuna** aitortu diote eta, gainera, droga-mendekotasun arazo larriak ditu. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Derrigorrezko Zahartzaro eta **Elbarritasun** Aseguruak (SOVI), berriz, %4,8 egingo du gora guztira. Berria - Ekonomia

Helburua da edozein **elbarritasun** mota duten pertsonek aisia edo kulturarako eskubidea izatea. Berria - Kultura

4 irud/hed

Siziliako grekoek beren lehiakide feniziar eta etruskoen aurka zertutako eraso huts eginaren emaitzak **elbarritasun** politikoaren forma leunagoa hartu zuen, Iñaki Mendiguren

---

elbarritu, elbarri(tu), elbarritzen **1** da/du *ad* eritasun edo ezbeharren baten ondorioz ezin mugi daitekeela gelditu. ik **hebaindu; balditu; ezindu**.

Hain geldi ze, **elbarritu** egin ote zen otu zitzaidan. Edorta Jimenez

Baina lanaren ondoren bat-batean eskuak **elbarritu** zitzaizkion, edozein lanetarako ezindua geldituz. Askoren artean

Sasoiko gizona izana **elbarritzen** ari da, gaztarotik datorkion sifilisak eta amaren aldetik herentziaz datorkion neurosirako joerak elkar indartuta. Josu Zabaleta

Bizi osorako **elbarritu** ez baninduten, goarnizioko soldaduen esku-hartzeari zor diot. Aingeru Epaltza

Neure aita salbatu zuen, eta hori jakiteak **elbarritu** bezala egin ninduen Telleriaren monumentua txikitzen laguntzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

-Urte asko bizi ondoren, zahartzaroak **elbarritu** aurretik, Zeusek arte [...] bihurtu zuen Filemon, eta ezki, berriz, Bauzis. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste bat **elbarritu** nahian, ezta? -Okinak, axolagabe, erantzun. Patxi Zubizarreta

Soldadu izan eta neure burua **elbarritzen** baldin badut, fusilatu egingo naute. Josu Zabaleta

Lurrun izoztu moduko batek heldu eta bertan burutik behera **elbarrituta** utzi zuen. Joanes Urkixo

Rayren aita, arreba eta anaia hilak ziren, eta amak orgatxo batean eserita ematen zuen egun osoa, artritisak **elbarrituta**. Koro Navarro

Arriskua sumatu eta beldurrak **elbarrituta** gelditu da zenbait minututan. Antton Olano

Elbarriturik eta mugiezin, Brooklyn Heightsen alokaturik zuen apartamentutik ateratzeko ezgauza, urteak eman zituen zubiaren eraikuntzaren nondik norakoak etxeko leiho ondotik zuzentzen, teleskopio bidez lanak ikuskatzen zituen bitartean. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Cherokee **elbarrituen** artean bufalo ilea zeukan azken gizona. Ez zeukan kargu hartzerik bere hanka **elbarrituei**, haiek ezin zuten-eta ezer egin. Anton Garikano

Jainko ahalguztidunak itsuei ikusmena bihurtu zien, gorrei entzumena, mutuei hitza, herrenei ibiltzea, **elbarrituei** sentimena eta mugimendua. Askoren artean

Esku haiek hain ahalmen miragarria lortu zuten aurrerantzean, non beraien ukitu salbagarriaz gaixoei osasun sendoa itzultzen baitzitzaien, **elbarrituen** gorputz-atal ihartuei zentzumena eta bizitasuna. Askoren artean

-Bueno, ni ez naiz hirurogeita hamar urtekoa -esan zuen **elbarrituak**. Irene Aldasoro

Elbarritu eta inbalieren onetan kartsuki bermatzen diren elkarte kudeatzaile batzuk. Herria

Baziren ere bi proiektu berezi, **elbarrituendako** (handicapés) alki berezi bat eta informatika muble bat. Herria

Erien eta **elbarrituen** besta. Herria

Hona hemen gure hildakoak, gure torturatuak; hona gure **elbarrituak**, ezinduak; gure zurtzak, bakartuak, bihotz-urratuak, bizi-puskatuak, oroimenaren zulo beltzean iltzatuak. Iñaki Segurola

Postmodernitatearen gizakia homo digitalis bilakatu da, gogoeta abstraktu eta analitikorako gero eta **elbarrituago**, gero eta ezinduago. Txema Ramirez de la Piscina

Jaitsieran haiekin gurutzatu zirenek aukera izan zuten bota urdin bikainak miresteko **elbarritu** zaharraren oinetan. Jon Muñoz

Oraindik ez zegoen inolako legerik zaurituei buruz; gerrako **elbarrituen** egoera askoz geroago arautu zuten, hortik atera kontuak. Jose Morales

SNCFi txartel gorria atera dio **Elbarrituen** Elkarteak. Berria - Euskal Herria

3 irud/hed

Gure ama **elbarritua** zen berbazko afektibitaterako. Mikel Hernandez Abaitua

Zuhaitz **elbarrituen** artetik oinez goaz. Berria - Kultura

4 ***elbarritua egon***

Ez **zegoen** konortegabetua, baina zeharo lozorrotua bai, **elbarritua** bezala. Joxe Austin Arrieta

Foligno hiriko gizon bat, Nikolas izenekoa, ezkerreko hankatik **elbarritua zegoen**. Askoren artean

Elbarritua zegoen, poliomielitisak hartua. Gotzon Garate

Arpinoko neskatxo bat hain **elbarritua zegoen**, non, gorputz-atalak indargabe eta kirioak zurrun, giza funtzio guztiak galdurik baitzituen. Askoren artean

Elizbarruti bereko bi andre, Verde eta Sanguigna, hain **zeuden elbarrituak**, non ez baitziren gauza mugitzeko, norbaitek eraman ezean. Askoren artean

Psikikoki nahiz fisikoki **elbarritua dago** etorkizuneko belaunaldi hori. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elbarritu eta (4); **elbarritua zegoen** (3); **elbarrituak eta** (3); **elbarriturik bezala** (3); **esan zuen elbarrituak** (4); **zuen elbarrituak** (4)

elbarritze *iz* eritasun edo ezbeharren baten ondorioz ezin mugi daitekeela gelditzea.

Elbarritze -mota batez.. Juan Martin Elexpuru

---

elbarrundar *izlag/iz* Elbarrungoa, Elbarruni dagokiona, Elbarrungo herritarra.

Ganden astean bere azken egoitzarat segitua izan da Josephine Galardi **Elbarrundarra** . Herria

Bernard Duhalde Serrestarra eta Maider Lopez **Elbarrundarra** . Herria

Fabienne Billon **Elbarrundarra** eta Denis Dominique Durand Lakuko kartierekoa. Herria

---

eldarniagarri *izond* eldarniatzen duena.

Ipurmasail bigun txuriak ziren pausaleku, gerri gotorrak dantza **eldarniagarri** baten sorburu. Karlos Linazasoro

---

eldarniatsu *izond* eldarnioz betea.

70eko hamarkadaz geroztik egiten dituen istorioak, **eldarniatsuak** eta era berean kritikoak dira; kritikoak, AEBetako politikarekin eta bertako burgesiarekin. Berria - Kultura

---

eldarniatu, eldarnia, eldarniatzen da/du *ad* eldarnioak hartu.

Halarik ere, noiz eta pentsatzen bainuen ezen etxe batean herts nintekeela bizitza osorako, haurrez inguraturik, zorabiatu eta **eldarniatu** bezala egiten nintzen. Joan Mari Irigoien

---

eldarnio **1** *iz* kontzientziaren lausotze edo lainotzea, ideien nahasmendua, haluzinazioak eta kidekoak dakartzana. ik **sukar 8**.

Hauek ez dituk ez asmazioak ez **eldarnioak** ; eta gu ez gaituk paranoiko batzuk. Karlos Linazasoro

Eldarnioa eta errealitatea bereizi ezinik esnatu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina **eldarnioa** da funtsean, egiarekin ez du inolako zerikusirik, nahiz giza behar psikiko sakon batzuk zeharka asetzen dituen. Markos Zapiain

Soldadu bat ikusi zuten, bi eskuak aurrera, elurpeko liluramendu hartan, elur bisutsaren astinaldiak eraginiko **eldarnio** hartan. Felipe Juaristi

Urduri bizi nintzen bolada hartan, eta gaueko lokamutsak eta **eldarnioak** , eta eguneko gertakariak eta katramilak, ez nituen beti elkarretarik garbiki bereizten. Txillardegi

Eritasunen sintomek esanahi bat dutela ikusi zuen Freudek; pertsona batek **eldarnio** bat duenean, esaterako, **eldarnio** horretan itxuratuta eriaren egiaren zati inportante bat dagoela. Berria - Harian

Mozkorrak uste du bere Izpirituaren erabaki askez erraten duela edana ez dagoenean isildu nahi lukeena, eta orobat, **eldarnioak** dituenak, berritsuak, haurrak eta beste askok uste dute Izpirituaren erabaki askez mintzatzen direla. Piarres Xarriton

Eskizofreniak **eldarnioak** sorrarazten ditu. Fernando Morillo

Nire uste izugarri hauek ez direla **eldarnioak** erakustearren. Karlos Linazasoro

Nor bere buruaren erabateko utzialdi hori, irritsaren **eldarnio** hori non plazerra bere gehiegitasunaz araztua den. Jon Muñoz

Eldarnioak jo ninduela. Edorta Jimenez

Erabaki-, itxaropen- eta beldur-krisialdi bat izan zen, baina sukar handia, pisu-galera eta **eldarnioak** eragin zizkion. Xabier Olarra

Ongi dakizue nolako espazio itzelean erortzen garen eta nola datozen **eldarnioan** makina bat irudi batere araurik gabe. Fernando Rey

Nire **eldarnioan** , besoa txito batzuek bizkarrean hartuta barre txikitan euren ezkutalekura eramaten zutela iruditu zitzaidan. Harkaitz Cano

Sukar-amets gaiztoen mende hago, Mateo; **eldarnioan** . Edorta Jimenez

Ez nazazu utz murgilarazi nauzun **eldarnioan** . Jon Muñoz

Nire **eldarnioetan** , batzuetan, pentsatzen nuen hura guztia ametsa, amesgaizto sukartsu bat baizik ez zela izan, eta, ohetik jaiki eta Maximilian plazara joanez gero, hantxe aurkituko nuela berriz ere Angela, bere betiko soineko merkea soinean. Alberto Ladron Arana

Berriz loak hartu eta **eldarnioetan** galdu aitzin, zergatik ez dakidala, grekerazko hitz batzuk errepikatu nituen: [...]. Juan Garzia

Ezta otu ere holakorik izan litekeenik, ez da hala, gure gabizain gaztea? -ziostan, **eldarnioaren** gortinaren atzetik hemengo aldera etortzen nintzen bakanetan, itsasoko gaitzak zein zereginetan harrapatu ninduen gogoraraziz. Edorta Jimenez

Eldarnioak nituen. Jon Muñoz

Eldarniotik ateratzen nintzenean, hantxe ikusten nuen, aulki batean eserita, neure oheburuan, soinean arropa berorik ez, eta niri esaten: [...]. Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Maitasuna, amodioa, **eldarnio** ona da, margorik gabekoa, edozein formatatik kanpokoa. Askoren artean

Dena nahasturik, **eldarnio** zoro batek jotako jainko halako batek egingo lukeen gisan. Juan Garzia

Sukar itsugarri batek hartuta, **eldarnio** ero batean galdurik, sasi lehorrez beteriko lautada zikin horretako hautsa arnasten zuela pauso bakoitzean. Berria - Kultura

Ez al zen, bada, interpretazioen **eldarnio** eroan apurka-apurka lerratzen ari? Jon Muñoz

Aitorpenaren zenbait alderdi sumatu ahal izan dituzu zeure gogoan, ordenarik gabe, **eldarnio** nahasian. Rafa Egiguren

Ohean sartu eta bost egunean ez zen esnatu, **eldarnio** betean, burmuinetako gaitzak jotzen hasia. Karlos Zabala

Harry hanpatasunezko **eldarnio** betean dago, adierazpen enigmatiko horiek harropuzkeriaz jaulkitzen bere ahotsa entzuteko atsegin hutsagatik. Oskar Arana

Bat-batean bularra dardarka hasi baitzitzaion **eldarnio** sukartsu baten eraginpean. Ibon Uribarri

Uste izan duzu **eldarnio** izugarri horretara makurtzeko gauza nintzela. Jon Muñoz

Emakume gaixoa mozkortu egiten zen, eta alkoholaren ondoren **eldarnio** politikoa izaten zuen: Errepublikari bibak esan eta agintariak, ministroak eta aberatsak iraintzea. Josu Zabaleta

Haren **eldarnio** erotikoak ezin lizunagoak begitantzen zitzaizkigun beste bi loti esnatuoi, zikinak. Karlos Linazasoro

Gero, ordu txikietako sukarrean, Dodoven **eldarnio** esanezinak. Karlos Linazasoro

Eldarnio guztiz arriskutsu batek hartua zinen. Jon Muñoz

Bukatu da **eldarnio** linguistikoa, itxi parentesia. Karlos Zabala

Absurdoa, menperaezina; ezerk ere -naturaren sakoneko eta isilpeko **eldarnio** batek ere ez- ezin zuen azaldu. Monika Etxebarria

Niretzat glosolalia edo heterofasia edo buru-nahasmendu edo **eldarnio** itxura gaiztoko hura maldan behera zetorren. Karlos Linazasoro

Ezin dut jasan zorigaiztoko **eldarnio** etsigarri hau. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egunen batean eskua gainean jartzen badiek Elgar-en demostrazioei, nork ziurtatuko dik zuzenak direla, eta ez direla hutsegitez jositako **eldarnio** sorta bat baino? Jon

Muñoz

U-boat itsaspekoak, horra Hemingwayren **eldarnio** gaietako beste bat. Edorta Jimenez

Eldarnio -une bat izan zuan, argia urratzen hasten den unea, beheko erreinuko indarrak artean ere ahaltsu direnean munduan eta gizakien bihotzetan, eta gauak artean ere bre azken hasperena jaulkitzen duenean. Xabier Olarra

Eldarnio -uneetan ere bada barne-txinparta bat argi egiten diguna. Xabier Mendiguren Elizegi

Sukarraren **eldarnio** aldietan liburu hau hamaika aldiz idatzi nuen, filmaturik legez baitzetorkidan dena gogora. Edorta Jimenez

Orduan **eldarnio** aldi moduko bat izan nuen, ontzia Lisboan gudurako atondu genuenean bezalaxe ikusi bainuen. Edorta Jimenez

Bizitza eta heriotza bideak, ase eta gose bideak, amets eta **eldarnio** bideak, itxaropen eta etsipen bideak. Felipe Juaristi

Une batez, kontuan izanda ordu gutxi lo egina zela, hasi zitzaion bere buruari galdezka ez ote zegoen **eldarnio** moduko batean murgilduta. Joxemari Iturralde

Diligentzia amaigabeek ereingo zuten **eldarnio** -hazi bitxi hura. Fernando Morillo

4 *eldarnio batean*

Gaua **eldarnio batean** pasatu nuen, lan hartarako gai izango nintzen asmatu ezinik, ikaztegiko langileek nire kontrola nola hartuko zuten beldurrez. Anjel Lertxundi

Ahopeka ari zen, **eldarnio batean** bezala, iratzartzeko ahaleginik egin gabe behinik behin edo, hobeto esanda, berariaz lozorroan jarraitzeko borondatearekin. Joxean Agirre

Eldarnio batean dagoela irudituko zaio, berak ez lukeela momentu honetan nirekin hemen berbetan egon behar, itzarri egin behar duela noizbait. Koldo Izagirre

Eldarnio batean bezala begietaratzen zaizkit inguruan ditudan tresnak, gurutzeak, aulki eta armairu zaharrak, disolbatzaileak eta arratoiak akabatzeko hautsak. Javi Cillero

Eldarnio batean hasi naiz hortzez eta haginez eta atzaparrez eta izerdiz eta negarrez eta odolez eta ikaraz eta gorrotoz eta amorruz eta itsuz eta okerrez eta itzuliz eta nekez eta suminez eta etsipenez eta gogoz eta asmoz eta gaiztoz eta zulatuz eta urratuz eta ukatuz irekiko dudan buldara berrira buruz. Koldo Izagirre

5 *eldarniozko izlag*

Lan haietan, kausa neurologiko zehatz baten ondoriozkotzat jotzen zen, lehenbizikoz, sintoma eta jokabide mordo bat gogameneko eritasuna nahiz **eldarniozko** etorria iradokitzen zuena. Xabier Olarra

Gutariko norbaitek artean **eldarniozko** irudipenik bazuen, azkar batean uxatu zitzaion, Etapleseko gure entrenamendu-esparru hagitz zabala estreinakoz ikusi orduko. Mirentxu Larrañaga

Itxuraldaketa beraz amaitua zen: hantxe bukatzen zen **eldarniozko** bidaia izugarri hura. Karlos Linazasoro

Gutun ustekabeko, **eldarniozko**, ezin sinetsizko haiek. Jon Muñoz

Horrek halako irudipen asaldagarri bat sortzen zion buruan, **eldarniozkoa**, oinazegarria, etsai-itxurakoa. Jose Morales

Irudi horiek ez zuten zerikusirik ordu arte ezaugarritzat izan zuen "ohiko" oroimenarekin: nahi gabekoak eta bat-batekoak ziren oraingook, flash tankerakoak eta ia menderatzaile eta **eldarniozkoak**, bai hotsez, bai bilbez, bai usainez, bai ukieraz. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eldarnioa (3); **bere eldarnioan** (3); **eldarnio bat** (6); **eldarnio batean** (6); **eldarnio betean** (3); **eldarnio eta** (5); **eldarnio moduko** (4); **eta eldarnio** (6); **eta eldarnioak** (3); **eta eldarnioan** (3)

---

eldarniokeria *iz* eldarnio gaitzesgarria.

Dena **eldarniokeria**. Edorta Jimenez

---

eldarniotsu *izond* eldarnioz betea.

Beroaldi hark sukar **eldarniotsu** baten eragina egin zidan. Juan Martin Elexpuru

Hamlet printzea, gaitzetsirik [...] tristurara amildu zen, eta gero baraura, hurrena lorik ezera, handik ahuleziara, hortik txolintasunera, eta, hala, amilbide horretan, orain datzan eta guztiok dolu-penetan gauzkan eromen **eldarniotsura**. Juan Garzia

Zuek duzue zuek imajinazio bihurri **eldarniotsua**! Karlos Linazasoro

Egungo gizartearen kronika **eldarniotsu** eta eszentrikoak. Berria - Kultura

Halako gaietan, itxura zoro, **eldarniotsua** hartzen du ikerkuntzak, basatia ia, eta zaila da, horrenbestez, jendeak uler dezan. Juan Garzia

Eldarniotsuegia den irudimena beti zorionaren bila ibiliko da, inon aurkitu gabe, eta azkenean ameskeriek hartuko dute errealitatearen lekua, eta desbideraketa desonestuek gozamen jatorrena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

elduaiendar ik **elduaindar**.

---

elduaindar *(ETCn **12** agerraldi; orobat **elduaiendar** ETCn **2** agerraldi) izlag/iz* Elduaingoa, Elduaini dagokiona; Elduaingo biztanlea.

Joaneko partidako aldeari eustearekin nahikoa zuten Zeberio II.ak eta Auzmendik, baina partida irabazita lortu zuten **elduaindarrak** eta segurarrak finalerako txartela. Berria - Kirola

Urdinez ziren Patxi Zeberio **elduaindarra** eta Segurako 36 urteko Joseba Auzmendi. Berria - Kirola

Elduaiendarraren besoko indarrarekin eta zango arinekin. Berria - Kirola

---

ele *(orobat **elhe** g.er.)* **1** *iz* hitza; hizketa, berriketa; hizkuntza. ik **solas**.

Ele bat, behako bat, hura han dela soilik jakitea, hots bada! Jon Muñoz

Erradazu **ele** bat eta sendatuko naiz, baina estrategiarik ez aipa Jauna! Itxaro Borda

Ez zizkidan **ele** bi horiek baizik erran **Ele** hori entzutetik beretik ez zarea ahalketua sentitzen? Jon Muñoz

Nola ukitu ninduen aitaren erran hark, eta nola sentitu nituen bi **ele** haiek -garaile eta galtzaile-, biak ongi berezirik eta marra batek banaturik, gaua eta eguna bezala! Joan Mari Irigoien

Zer ziren bada burumuinaren harpe hitsetarik jaukitzen zitzaizkion **ele** horiek? Itxaro Borda

Hiriko argiek, ostatuko **ele** eta oihuek piztu naute berehala. Piarres Aintziart

Bere mugikorra beharriari lotua heldu zen gizon gazte bat, **ele** eta **ele**, begiak apalik. Herria

Badela orain **ele** eta mugimendu! Piarres Aintziart

Dena irri, **ele** eta oihu airos. Piarres Aintziart

Elea zerion, adiskide antzo mintzo. Aingeru Epaltza

Aurpegiak gorri, **elea** xuhur, ez du aspaldi helduak direla. Piarres Aintziart

Elea bero hasten dira ertzainak, atzera! atzera!, eta, haietako bi miatzen ari direlarik gorpuaren inguruak, beste bi ertzainek plastikozko zerrenda zuri-gorri bat jartzeari ekiten diote, lurrean datzana jendearengandik bereizteko. Anjel Lertxundi

Laurogei urteak bete dituenez geroztik, bere kargu orotarik erretiratu baita Roger Etxegarai kardinalea eta menturaz gertatu baitzaio, beste kargudun batzuei bezala, kargua utziz geroz mihia luzatzea edo bederen **elea** askatzea. Piarres Xarriton

Bertsulari bezala **elea** aise heldu zitzakon eta zuzen; pikoa eta irria errexak zituen, baina ez zuen sekulan itsuskeriarik ez gaiztakeriarik erabiltzen. Michel Oronoz

Eleak emeki ahoskatzen zizkidan. Itxaro Borda

Eleak bai, **ele** franko badira, denak eder. Berria - Euskal Herria

Beharrik haien **eleak** ez dituzun konprenitzen. Xabier Montoia

Haren **eleak** txaloz eta "gora" ozenez errezebituak izan ziren. Elena Touyarou

Poesiaren eginbeharretako bat hitzak garbitzea, **eleei** zarata kentzea dela zioen behinola Bernardo Atxagak elkarrizketa batean. Iñigo Aranbarri

Nola baita faltsu eta arriskutsu atsegin eta seduzitzaile den bezainbat, ez du nehoiz, gazte-gaztea zenetik, urratsik egin edo **elerik** erran asmo bat izan gabe. Jon Muñoz

Bittorri **elea** agortu zitzaion. Itxaro Borda

Berrogoi urte han ibili ginela eta orain hasia da **elea** jalgitzen. Piarres Aintziart

Orduan baizik ez zituzten egin bi **ele** elkarrekin. Eneko Bidegain

Ele guti egiten nuen etzanik egoiten nintzen egin ahala luzaz, eta arratsaldean eguzki puxka baten hartzera joaiten nintzen. Marzel Etxehandi

Oro har **ele** guti erabili genuen egun hartan. Piarres Aintziart

Alde edo aurka, bakoitzak **elez** erran dezake sentitzen eta testuinguru horretan bizitzen duena. Itxaro Borda

Aipu eta anekdota haiekin eta haien arteko loturekin, sare bat osatuz joan zinen hitzez hitz eta **elez ele**, eta ni sare hartan atrapaturik eta liluraturik sentitu nintzen. Joan Mari Irigoien

Uste dut gizarte elebidun bat (euskara-gaztelania edo euskara-frantsesa), edo hiru **elekoa** nahi bada, anitzez ere hurbilagoa dela, eta egingarriago, gaztelania atzendurik euskara eta ingelesa erabiliko dituen gizarte bat baino. Pello Salaburu

Ele bietan, nola ez. Joxerra Garzia

Ele bietan-edo, alegia: [...]. Joxerra Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hurkoarentzat **ele** onik baizik ez denean. Jon Muñoz

Ezer entzuten ez bailuan, **ele** ona eta irri beroa eskaintzen zien. Itxaro Borda

Minixtroak **ele** ona emaiten duela eta hortan kitto! Herria

Ele politak eskaintzen dituzte baina orain artean bederen ez dute egoera aldatzeko edo bideratzeko ahalik erakutsi. Berria - Euskal Herria

Joxe niniarekin ari denaren tonua erabiliz solastatu zaio zamariari, apal, gozo, mingain klaskadak, ziztuak eta ia soinu huts diren **ele** eztiak nahasiz. Pello Lizarralde

Behin eta berriz irakurri nuen, silabak banan-banan aletuz, lerroz lerro ahogozatuz, **ele** eder haiek denak besterentzat ez baina niretzat balira bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Haien haserreak, haien **ele** ederrezko protestek omore onean ezarri ninduten. Marzel Etxehandi

ik beherago 7. Lau galdeeri ba/ez erantzunez, **ele** alferrik gabe. Herria

Luma beltza, **ele** askea. Berria - Kultura

Ele gaiztoek ahapeka ziotenez, Savall jeneral-buruarekin izandako uztar gehiegiek ere sendagailua behar zuten. Txillardegi

Laster izan zen zaharren eta gazteen arteko halako lehia bat, eta ez bakarrik pilotaren gatik: ahopaldi, **ele** bero, gaizto, eztabaida, ez zen deusen eskasik halako kalda batean Eskual Herriko plazen atxikitzeko. Michel Oronoz

Ez zara deusetara helduko edo *sortu zarenean urkatu behar zintudan* errepikatzen diete eta **ele** makur horiek gero, norahaize-ikur, baliatuko dituzte egunero. Itxaro Borda

Berez, **ele** gutiko gizona da. Eneko Bidegain

Laborantzan edo lantegietan, **ele** gutxikoak ziren eta aski zen ildo horretan sartzen zirenen begien hondoen jotzea, zeinen indartsua zen deus ere galtzekorik ez zutenen tema eta kemena jakiteko. Itxaro Borda

Euskaraz manera bitxian mintzatzen zen, **ele** arrotzak tartekatuz. Aingeru Epaltza

Ez dut gogoan **ele** doi eta egoki hori atzeman nuen, Kristinak tupustez eten baitzidan hasi gabeko jarduna: [...]. Aingeru Epaltza

Ez zuen baitezpada iritzi haiekin bat egiten, baina ez zuen **ele** pozointsu haien gezurtatzeko indarrik ere egiten. Eneko Bidegain

Isiltasunaren leizera botatzen nituen **ele** mingarriak. Piarres Aintziart

Legelariak **ele** gozo eta ikasia zuen. Aingeru Epaltza

Musu eta **ele** gozoek hainbat hamarkadetako destorbua ahantzarazten zioten. Itxaro Borda

Baldin eskaini didazun adiskidantza **ele** hutsa ez bada. Jon Muñoz

Bestela, iduri bailuke beren zekenkeriaren estaltzeko eta herrialde askatu berrien ilusitzeko eta larrutzen jarraitzeko herrialde aberatsek asmatu **ele** huts gezurtiak baizik ez direla gure Deklarazio, Hitzarmen, itun eta araudi guztiak. Piarres Xarriton

Aldizkako saiotan astintzen zuen haren bizkarra lehendakariaren **elezko** metraileta. Joxan Elosegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barnean haatik **ele** burrunba nagusi. Piarres Aintziart

Hertsapen [...]: botearearen **ele**-edertasuna. Xabier Olarra

Ele-hustasuna hedatu zen bien artean. Itxaro Borda

Ilunpe zakarrean eskale bihi batek ez zuen gazteen **ele**-balentriarekiko arraileria edo iharduki gogorik. azkenean, bere oilasko erdia akabatzeko beta aurkitu baitzuen, osaba Joanikoten **ele**-jario luzearekin baterat. Itxaro Borda

Gizonak **ele**-gaizto zerraikan. Itxaro Borda

Hain luzaroan isilik egondako **ele**-edertasunaren doinuak berriro ozendu ziren Gregorioren pulpitotik. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Gizaseme **ele**-zaku horietako bat eseri zitzaidan ondoan. Anjel Lertxundi

Gizon ezin kalakariagoa eta ezin **ele**-ontziagoa zena, hitz gutiko eta hitz urriko egin zitzaigun handik aitzina. Joan Mari Irigoien

Haren senar **ele**-leun eta gaiztoarekin. Oskar Arana

Eulalia izenak hizketa on eta **ele**-txukun, **ele** atsegin, kanta leun edo ahots gozoa duen emakumea esan nahiko luke. Pello Zabala

Leandrok etenik gabeko jardun **ele**-oneko bati ekin baitio adarbakoitzaren istorioak behar omen lukeen erematearen kontura. Anjel Lertxundi

Hire aitatxori ikasitako errezetarekin, erantzun zion Marckek, artean oka eta hizketan orduantxe ikasi izan balu bezain **ele** zezel. Anjel Lertxundi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alexandro berarengana etorri zenean, ez zion ziri-**elerik** batere zuzendu, baizik eta beste ikusleen artekotzat jo zuen. Juan Garzia

Mamira jotzeko unea zen; hura artean nire limur-**eleok** hausnartzen ari zelarik, hogeita hamar libera urre eskatu diot guztiaren truke. Juan Garzia

-Barkatuko didazu atrebentzia, baina ez dizu batere onik egingo zure txerren-**eleekiko** obsesio horrek -hasi zait geriatra-. Anjel Lertxundi

Berunezko xafla biribilkatu eta iltze batez zulatuan irarririk dago xarma-**elearen** testua, xarmaginak bere ahizparen hilobiko libazioen hodira limurtua. Juan Garzia

6 alegia, ipuina.

Nork asmatu zuen Mateo Txisturen **elea**? Pako Aristi

Beste biderik ez zeukan, bada: Andreasengandik orpoz-ipurdi ihes egin, eta berriro Ameriketara eramango zuen ontziren batean ezkutatu, edo, besterik ezin eta, marinel **ele**

hartako neska hura bezala ontzi-mutilez mozorrotu. Anjel Lertxundi

7 ***ele-eder*** *(orobat* ***eleder*** *g.er.)* *izond* ik **elokuente**.

Dotorea eta eleganta zen, zibiltasunaren arauak ezagutzen zituena, hitz errazekoa, aho-xuri eta **ele-ederra**. Joan Mari Irigoien

Txantxa artean irakurri zuten egitarau osoa, hizlari **ele-eder** batek herriko giro mistikoa loriatu behar zuela, edo Schola Cantoruma Sestaotik ekarri behar zutela. Josu Landa

Izain xurgatzailetzat zeukaten gehienek Lenehan, baina, fama hori gorabehera, azkarra eta **ele-ederra** zenari esker gorde ziren lagunak erabat haren kontrako jarrera hartzetik. Irene Aldasoro

8 ***ele mele*** *iz* berriketa, hitz-jarioa.

Emakumeak, ordea, **ele-mele** parrastatsu bati ekin zion, txorrota matxuratu zaion iturri ireki baten jario halako batez. Anjel Lertxundi

Zernahi **ele-mele** badabila Saddam Hussein hartaz oraino. Herria

Gusturago egoten nintzen jende umoretsuz betetako taberna batean silla batean eserita haien denbora-pasarako **ele-meleak** entzuten. Pello Lizarralde

Aliatuak alderdi guzietarik heldu ziren, eta bazen gure artean **ele-mele**, bereziki igande astirietan. Marzel Etxehandi

Agatak deus ez bailitzan begia kameraren zurrutagailuan pausatu zuen, solasak, **ele-meleak** eta karkailak bazterturik. Itxaro Borda

9 ***ele eta mele*** *adlag* hitz egin eta hitz egin.

Edmund Dwyer Gray hizketan ari zen, **ele eta mele**, eta gizon xahar bat, karramarro-itxurako gizon xahar bat, bere bekain sarrien artetik begira zegokion. Irene Aldasoro

Gizaseme ele-zaku horietako bat eseri zitzaidan ondoan eta, **ele eta mele**, berriketan hasi. Anjel Lertxundi

Eta isildu zarelarik, berehala **ele eta mele** hasi beharrean, atorrako sakelatik Gauloises atera eta zigarreta bat eskaini dizu. Xabier Montoia

10 *ele zahar* ik **elezahar**.

11 ***ele txar*** *(orobat* ***eletxar****)*

Bainan azken hau ez da oraino osoki onartua (emazteak soldadoz beztiturik ikustea eskandalagarria zaie batzuri), eta keinu itsusiak ikusi dira eta **ele txarrak** entzun ohizko alardekoen ganik emazte ta gizonez osaturiko alardeari buruz. Herria

12 ***ele txarka*** *adlag*

-Jendea **ele txarka** ariko da. Elena Touyarou

Emazte horiek Sarako beste biztanleek egiten zuketen gauza bera egiten zuten: hartaz eta haren familiaz **ele txarka** aritu, bastartaz trufatu. Elena Touyarou

13 ***ele zuri*** *(orobat* ***ele xuri*** *eta* ***elezuri****)* solas engainagarria.

Ele zuri frango errana, haren begiek, haren kopetak, haren ezpain zimurrek, haren kara eta itxura guziek, bazuten halako basamolde bortitz bat. Xipri Arbelbide

P.ko hautetsien aitzinean jokatu dira Galouzeau jauna eta Sarkozy jauna erakutsi nahian elgarrekin lanean ari zirela, dena **ele zuri**, bainan erakutsiz ere dituzten ikus-molde diferentak. Herria

Xinak ez duela axola handirik jende-eskubideetaz bainan hortaz **ele zuri** parrasta bat erran da eta gero kasik denak paso joan dira! Herria

Gorputz ederra, zoriaren ondorio hutsa; graziak, ohiturak ia beti ematen dituenak, adimen bizia egia erran, baina behar izanez gero **ele zuriak** ordezkatuko lukeena. Jon Muñoz

Familiaren kontsolamendu eskariari erantzun dut **ele xuriz**, ene ahotsaren oihartzun kiretsa aditzen nuela. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko ele (4); **aldeko ele ederrak** (4); **beti ele** (5); **bi ele** (4); **den ele** (4); **den ele hori** (3); **dena ele** (6); **ele bat** (21); **ele bat bakarra** (4); **ele batek** (3); **ele bietan** (3); **ele bitan** (16); **ele eder** (4); **ele ederra** (9); **ele ederrak** (13); **ele ederrez** (3); **ele eta** (19); **ele eta ele** (4); **ele eta mele** (3); **ele goxo** (3); **ele guti** (6); **ele haiek** (4); **ele hori** (11); **ele horiek** (6); **ele mele** (6); **ele on** (3); **ele ona** (14); **ele ona aise** (3); **ele ona emaiten** (3); **ele oneko** (3); **ele onez** (3); **ele politak** (3); **ele txukun** (3); **ele zuri** (5); **elez ele** (3); **eta ele** (34); **eta ele ederra** (3); **euskararen aldeko ele** (3); **ez ele** (5); **ez zuen ele** (3); **haren ele** (4); **nituen ele** (3); **zuen ele** (7)

aberriaren elea (3); **berrien eleak** (4); **eleak eta** (3); **elerik erran** (5); **elez ele** (3); **eta elea** (4); **eta eleak** (5); **eta elez** (4); **ezein elerik** (3); **gure aberriaren elea** (3); **lehen eleak** (3); **luma berrien eleak** (4)

---

eleanitz *izond* eleaniztuna.

Espainiako Konstituzioak onartzen duen «izaera **eleanitz** hori» Europara ez zela «bere horretan» eraman salatzen du idatziak. Berria - Euskal Herria

---

eleaniztasun *iz* eleanitza denaren nolakotasuna eta egoera.

Eleaniztasuna izanen da lege berriaren bidea. Herria

Berehala hizkuntzalari eta pedagogo jakintsun batzu asaldatu dira, txosten horren gezurrak salatuz eta **eleaniztasunaren** aberastasuna aitzinera emanez. Herria

Eleaniztasunaren «gehiegizko» erabilera ere salatu dute ikasleek: «Hiru hizkuntzatan aritzeko gai izan behar garela esaten digute». Berria - Euskal Herria

Soziolinguistaren ustez, oso inportantea da gizartea **eleaniztasunaren** alde egitea, eta hizkuntza gutxituen inguruan dauden mitoak apurtzea. Berria - Euskal Herria

Eleaniztasuna bultzatzeko eskatu zien, beste herriekin harremanak izateko hizkuntzak jakitea ezinbestekoa dela konturatu delako. Berria - Euskal Herria

Eskoletan, **eleaniztasuna** bermatzea exijitu behar dugu. Berria - Gaiak

Espainian **eleaniztasuna** arautu dadila nahi dute. Berria - Euskal Herria

Mugalde guztietan, Estatu modernoak izan dira, populazioak elebakar bihurtu dituztenak, gizarte horien **eleaniztasun** naturala zanpatuz: pentsamenduaren mugak ere kontrolatzeko. Koldo Izagirre

Eleaniztasun agentzia: Enpresei hainbat hizkuntzatan komunikatzeko tresnak emateko. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eleaniztasuna eta (3); **eleaniztasunaren alde** (3); **eleaniztasunaren aldeko** (5)

---

eleaniztun *izond* hizkuntza asko dituena.

Triesten hizkuntza asko hitz egiten da, horren lekuko da atzokoan aipatzen nuen Pen Club **eleaniztuna**. Anjel Lertxundi

Zorroaga teniente **eleaniztuna** ere haiekin zebilen. Lutxo Egia

Hizkuntzari dagokionez, Europak **eleaniztuna** izan behar duela uste du EAJk. Berria - Euskal Herria

Hitzarmenaren xedea ume eta gazte horiek guztiak etorkizunean «euskal herritar **eleaniztunak**» izatea dela nabarmendu zuen Mendigurenek. Berria - Harian

Espainiako Gobernuak Hego Euskal Herrian dituen erakunde eta ordezkariei dei egiten diegu Estatuaren izaera **eleaniztuna**, hitzez bakarrik ez, praktikan ere errespeta dezaten. Berria - Euskal Herria

Euskal gizartearen borondatearen errespetuan oinarrituta dago, Espainiako Estatuaren gainerako herriekiko elkartasunean eta nazio ezberdinak osaturiko Estatu **eleaniztunaren** egituraketan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eleaniztunak kanpaina (3); **zigilu eleaniztunak** (3)

eleatar *izlag/iz* Hego Italiako Elea antzinako hiriarena; Eleari dagokiona; Eleako biztanlea; filosofian Eleako Zenonek sortu zuen eskolako kidea.

Platonek jadanik kritikatu zuen **Eleatar** Zenon dialektiko sotila bera sofista gaiztotzat joz. Ibon Uribarri

Sofistak, **eleatarrak**, megaratarrak. Jon Muñoz

Eleatarren artean, berriz, ideia logozentriko horiek errepikatu egingo dira. Askoren artean

Eleatarren artean, berriz, ideia logozentriko horiek errepikatu egingo dira. Askoren artean

---

elebakar **1** *izond/iz* pertsonez eta taldeez mintzatuz, hizkuntza bat baino ez dakiena; hizkuntza bakarrekoa. ik**elebidun**.

Burrasoak Portuges, Espainol edo Gaskoinak dituzten haurrak frantsesez baizik ez dira etxean mintzatzen, **elebakarrak** dira. Herria

Eskolan sei urterekin abiatu ginenean, anaiarekin euskaradun bakarrak ginen eta **elebakarrak**. Ana Urkiza

Elebidunok erdaldun **elebakarrek** baino gutxiago ikusten dugu telebista. Txema Ramirez de la Piscina

Orain bezain analfabeto **elebakar** iraungo dutelako geroaldian ere. Edorta Agirre

Eman dezagun herri **elebakar** batean gaudela, hau da, biztanleen kopurua aldaezina eta hizkuntza bakarra dituen herri batean -Galian, esaterako-, gaudela. Isabel Arrigain

Mugalde guztietan, Estatu modernoak izan dira, populazioak **elebakar** bihurtu dituztenak, gizarte horien eleaniztasun naturala zanpatuz: pentsamenduaren mugak ere kontrolatzeko. Koldo Izagirre

Helburu hori, gizarte **elebakarraren** alde egitea baino apalagoa izanik ere, ez da hala ere batere erraza. Pello Salaburu

Erakundea sortu zenean udal euskaldunak, hots, udal **elebakarrak** sortzeko konpromisoa hartu zuen. Berria - Euskal Herria

Batzuek unibertsitate **elebakarra** aldarrikatzen dute, bere jarduera euskara hutsean egingo lukeena. Pello Salaburu

Seaskak ikastetxe **elebakarrek** baino emaitza hobeak lortu ditu baxoan. Berria - Euskal Herria

Elebakar kaskagogorrak. Berria - Euskal Herria

2 (bestelakoez)

Errepideetako seinale **elebakar** gaztelaniazkoak ezabatzen ibili ginen institutuko neska-mutil batzuk. Anjel Lertxundi

Euskara hain egoera larrian izanik biziki garrantzitsua da Iparraldeko euskal hiztunek halako eremu **elebakarrak** edukitzea eta era berean Hegoaldeko euskaldunekin harremanetan izatea. Berria - Kultura

Hiztegiei dagokienez, badauzkagu **elebakarrak** [...] eta elebidunak: gaztelania-euskaraz, esaterako, VOXen Hiztegi Handia edo Elhuyar hiztegia. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
elebakar eta (5); **elebakarrak dira** (4); **erdaldun elebakarrak** (4); **erdaldun elebakarrak dira** (3); **erdaldun elebakarren** (4); **euskaldun elebakar** (3)

---

elebakartasun **1** *iz* elebakarra denaren nolakotasuna eta egoera.

Halaz ere, bada jendea, **elebakartasunaren** ilusioan bizi dena. Ana Urkiza

Arestian aipatu dudan liburutegi nagusien **elebakartasuna** (gaztelaniazkoa, of course) ez zen horrela mantenduko baldin eta bertako profesionalek, bibliotekariek, euskararekiko begirune gehixeago izango balute. Berria - Kultura

Beste inon erabiltzen ez den politikari eutsi dio Nafarroak hizkuntzaren arloan, hau da, **elebakartasunari**. Berria - Euskal Herria

EAJ dela-eta, kontaezinak dira **elebakartasunaren** bidean emandako atzerapausoak. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Elebitasun ofizial batetik lurralde **elebakartasun** batera pasatu ziren. Berria - Euskal Herria

---

eleberri *(orobat **elaberri** g.er)* **1** *iz* hitz-lauzko kontakizun aski luzea, alegiazkoa baina egiantzekotzat ematen dena. ik **nobela**.

Hirurehun orrialdetik gorako **eleberri** bat idatzi zuen, *La disparition*. Iñigo Aranbarri

1904an, gorabehera horien guztien artean, *Il fu Mattìa Pascal* (Matias Pascal zena) **eleberria** argitaratu zuen. Josu Zabaleta

Lau **eleberri** eman ditu argitara Erein argitaletxeak, itzulpenak guztiak, gazte literaturara bideratutako Perzebal sailean. Berria - Kultura

Eleberria da, batez ere, landu duen literatur generoa. Ana Urkiza

Egunen batean berak idatziko du Ernest Hemingwayren *Agurea eta itsasoa* **eleberriko** Santiago pertsonaia Mundakako Indalexio Tribisarrosperengatik etorri zitzaiola, Kuban Andres Untzainek arrantzalearen itsasote bakartiak askotan aipatzen ei zizkiola-eta. Edorta Jimenez

Eleberria funtsean frantsesen armadako bi soldaduren arteko elkarrizketa luzea duzu, Jean Etxegoien euskaldunaren eta David Mandel errusiarraren artekoa. Markos Zapiain

Foiletoi gisa agertu ziren Verneren istorioak aldizkari eta egunkarietan, eta jendeak irrikaz itxaroten zuen hurrengo kapitulua, hurrengo **eleberria**. Karlos Zabala

Etzazu erdeinuz hitz egin hiru liburukiko **eleberriez**, Cecily. Antton Olano

Gerran giroturiko **eleberria**. Edorta Jimenez

Egun horietan hasten da **eleberri** honetako istorioa. Urtzi Urrutikoetxea

Madame Bovary **eleberriko** pertsonaia nagusia. Oskar Arana

Artistek hainbat irudi sortu zituzten **eleberriko** pasadizoak irudikatzeko. Javi Cillero

Hauxe duzu aurkezpena, korapiloa eta bukaera betiko legez eskaintzen dizkiguten **eleberrien** artean ederrenetarikoa. Markos Zapiain

Hementxe hasten da **eleberriaren** haria, edo kontakizunaren bilbea, nolabait esateko. Jose Morales

Deus ez da hutsetik sortzen, pentsatzen du idazleak, **eleberriaren** hasierako pasartea gogoan. Imanol Zurutuza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ilustrisima **eleberri** laburra. Edorta Jimenez

Pornografoa eta ustelkeri zalea deitu zioten besteak beste, bere lehenengo **eleberri** handia argitaratu zuenean. Karlos Zabala

Eleberri autobiografikoak baitira neurri handi batean. Josu Zabaleta

Eleberri historikoen arrakasta, zuk nola azal dezakezu? Berria - Kultura

Eleberri soilak **eleberri** fantastikoarekin duen parekotasuna fotografiak pinturarekin duenaren antzekoa da. Xabier Olarra

Delitu txiki bat egingo du, eta hortik aurrera **eleberri** poliziakoaren antz handia hartzen du Perutzen obrak. Anton Garikano

Biak dira **eleberri** sendoak, biak ederrak. Markos Zapiain

Odisea ontologikoa, **eleberri** beltz baten erritmo bizian idatzia. Monika Etxebarria

Eskola mutil batek idazmahaiaren azpian gordea duen **eleberri** debekatu bat erakusten duen bezala. Karlos Zabala

"Rossettiren obsesioa"n, zehazki, "Adio atsekabe" **eleberri** galdu eta ahantziak, bizitza zapuztu egiten dio Juan Martini ezkututik. Markos Zapiain

Juliok **eleberri** frantsesak irakurtzen zituen, idazle erdi-naturalista, erdi-galaienak. Josu Zabaleta

Aspaldi honetan psikoanalista eta psikologo frankok **eleberri** jakin batzuk agintzen dituzte, edo filmak, sendabide gisa. Markos Zapiain

1911n idatzi, edo behintzat bukatutzat eman zuen Barojak bere **eleberririk** txalotuenetako bat, denboraren joanean benetako ikur bihurtu zena irakurle barojazaleentzat. Josu Zabaleta

Ez pentsa **eleberri** izugarri errealista denik, hain zuzen ere kontrakoa esango nikek. Mikel Hernandez Abaitua

Charles Dickens-en misteriozko **eleberri** amaitu gabea. Oskar Arana

Abenturazko **eleberriak** dira. Karlos Zabala

Atalkako **eleberri** [...] : literatur lan mota bat, maiz gezurrezko istorioa, egunkari edo aldizkari baten aleetan arrastaka ibili ohi dena. Xabier Olarra

Bederatzietatik bederatzietara film itxurako **eleberria** da. Anton Garikano

Irakurritako **eleberrietako** heroiak imitatuz. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esango da, beharbada, hain sarritan aipatu den **eleberri**-testuaren adibideak ez duela baliorik froga modura. Xabier Arregi

Eleberri genero berri bat sortu da. Karlos Zabala

Andresek **eleberri**-giroko izenak eman zizkien handik ikusten ziren gauzei: misteriozko etxea, eskaileraren etxea, gurutzeko dorrea, katu beltzaren zubia, ur-biltegiaren etxea. Josu Zabaleta

1945ean argitaratu ziren Les Chemins de la liberté (Askatasunaren bideak) **eleberri** sortako lehendabiziko bi liburukiek. Monika Etxebarria

Hori dena gogoan sartu zen bete-betean, urte hartako udazkenean bertan, *Memorias de un hombre de acción* **eleberri**-sailaren idaztera. Josu Zabaleta

Erreferentzien joko hau ez da homologoa matematika-tratatu batez dihardugunean edo testu-iruzkin batez, kondaira historiko batez edo **eleberri** ziklo bateko pasarte batez ari garenean. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehen zatia prosan idatzia dago, artzain **eleberria** da. Berria - Harian

Ohiko espioi **eleberri** bat baino, zerbait ezberdina egin nahi izan zuela nabarmendu zuen. Berria - Kultura

Barregarria litzateke denen aurrean aitortzea polizia **eleberriak** baizik ez dituzula irakurtzen, hain zaude murgilduta teoria kritikaren munduan. Javi Cillero

Jeneralik hoberenak, gerra-kontseiluetan, besteei utzi behar die ekimena eta jarduna, eta berak polizia-**eleberri** bat irakurri guduaren bezperako beilan. Juan Garzia

Izan ere, astronomian, krimen **eleberrietan** bezala, gehienetan gauza txikienetan dago istorioaren giltza. Berria - Gaiak

«Historia **eleberria** edo aktualitate **eleberria** da», azaldu du. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bada eleberri (3); **bat eleberri** (3); **bere eleberri** (5); **bere lehenengo eleberri** (3); **beste eleberri** (3); **buruzko eleberri** (4); **da eleberri** (9); **den eleberri** (5); **dira eleberri** (3); **dituen eleberri** (3); **du eleberri** (7); **duen eleberri** (10); **edo eleberri** (4); **eleberri arrakastatsuaren** (3); **eleberri bat** (58); **eleberri batean** (10); **eleberri batek** (3); **eleberri batekin** (8); **eleberri batekin heldu** (3); **eleberri bateko** (6); **eleberri baten** (8); **eleberri batetik** (6); **eleberri edo** (11); **eleberri edo ipuin** (8); **eleberri eta** (9); **eleberri fantastiko** (3); **eleberri gehienetan** (3); **eleberri hau** (15); **eleberri historiko** (3); **eleberri historikoa** (7); **eleberri honek** (12); **eleberri honen** (7); **eleberri honetako** (13); **eleberri honetako protagonista** (3); **eleberri honetan** (24); **eleberri hori** (7); **eleberri horretan** (3); **eleberri hura** (3); **eleberri idatzi** (3); **eleberri labur** (8); **eleberri laburra** (4); **eleberri osoa** (3); **eleberri poliziala** (3); **eleberri saria** (3); **eleberri telefonikoa** (3); **en eleberri** (3); **espioi eleberri** (4); **eta eleberri** (16); **eta eleberri bat** (3); **euskal eleberri** (5); **hainbat eleberri** (3); **hiru eleberri** (7); **idatzitako eleberri** (3); **idazleak eleberri** (4); **izeneko eleberri** (3); **lehenengo eleberri** (7); **polizia eleberri** (4); **ren eleberri** (4); **zuen eleberri** (3); **zure eleberri** (3)

anbroxio eleberria (5); **azken eleberria** (9); **baten eleberria** (3); **bere lehen eleberria** (3); **bigarren eleberria** (10); **da eleberria** (6); **den eleberria** (7); **duen eleberria** (3); **eleberria argitaratu** (10); **eleberria da** (29); **eleberria du** (3); **eleberria eta** (9); **eleberria hiru** (3); **eleberria idatzi** (9); **eleberria idatzi du** (4); **eleberria idazteko** (5); **eleberria idazten** (4); **eleberria irakurri** (3); **espioi eleberria** (3); **eta eleberria** (5); **ez da eleberria** (3); **gorbeiako haizea eleberria** (3); **haizea eleberria** (3); **haurgintza minetan eleberria** (3); **hirugarren eleberria** (4); **jatorrizko eleberria** (3); **lehen eleberria** (10); **lehenengo eleberria** (7); **minetan eleberria** (3)

ari zen eleberriak (3); **bell tolls eleberrian** (3); **bell tolls eleberrian** (3); **da eleberrian** (3); **da eleberrian** (3); **dira eleberrian** (5); **dira eleberrian** (5); **ditu eleberriak** (3); **du eleberriak** (3); **eleberriak dira** (4); **eleberriak eta** (10); **eleberriak idatzi** (3); **eleberriak irakurtzen** (7); **eleberrian agertzen** (4); **eleberrian agertzen** (4); **eleberrian kontatzen** (3); **eleberrian kontatzen** (3); **eleberrian mikel** (3); **eleberrian mikel** (3); **eleberrian mikel lizarralde** (3); **eleberrian mikel lizarralde** (3); **eleberriari esker** (4); **eta eleberriak** (7); **izeneko eleberrian** (3); **izeneko eleberrian** (3); **polizi eleberriak** (3); **polizia eleberriak** (4); **tolls eleberrian** (3); **tolls eleberrian** (3); **zen eleberriak** (4)

bere eleberrietan (6); **eleberrien artean** (3); **eleberriko don** (3); **eleberriko don pedro** (3); **eleberriko pertsonaia** (9); **eleberriko santiago** (3); **eta itsasoa eleberriko** (6); **itsasoa eleberriko** (6); **itsasoa eleberriko santiago** (3); **semea eleberriko** (3); **semea eleberriko don** (3); **soinujolearen semea eleberriko** (3)

---

eleberrigile *(orobat **elaberrigile** g.er. eta **eleberri egile** g.er.) iz* eleberri idazlea.

Munduak sortu nahi ditugu **eleberrigileok**, iraganeko edo egungo munduak bezain errealak, baina, aldi berean, bestelakoak liratekeenak. Iban Zaldua

Europa Erdialdeko herrietan etxean bertan jaso duten tradizioa dela oro har **eleberrigileak** kontatu ez eta jakindakotzat ematen dituenen oinarria. Urtzi Urrutikoetxea

Poetak ez du eleberririk irakurtzen eta **eleberrigileak** nahiago omen du saioa irakurri; poetek eta poesia-irakurleek aspaldi hartu zuten sekta itxura hartzen ari dira narratzaileak eta narrazio-irakurleak. Anjel Lertxundi

Elkartea Bob Capa argazkilariak eta Irving Shaw **eleberrigileak** osatzen dugu. Pello Salaburu

Errusiar **eleberrigile** handi hori bezalakorik ez da izan gauza ezezagun estalien zirrara hori ariman sartzeko. Josu Zabaleta

X **eleberrigile** ospetsuak, hainbat maisulan ondu baitizkigu, arreta berezia jarri dio pertsonaia ongi marraztuak aurkezteari. Xabier Olarra

Gure **eleberrigile** modernoen artean ere oso gutxi dira ezer asmatzera ausartzen direnak. Antton Olano

Gogol **eleberrigile** eta antzerkigile paregabea izan zen, eta berebiziko eragina izan zuen Errusiako literaturan. Jose Morales

---

eleberrigintza *iz* eleberriak idazteko jarduera; eleberriek -edo eleberri multzo batek- osatzen duten literatura mota.

Hala poesian, nola ipuingintzan edo **eleberrigintzan**. Berria - Kultura

Saizarbitoriak berak ez ziokeen **eleberrigintzari** ekingo baldin euskararen egoera oparoa izan balitz. kontakizun laburretatik **eleberrigintzara** etorri da *Greta* liburuarekin. Markos Zapiain

Euskal **eleberrigintza** modernoaren aitzindari bat. Berria - Kultura

Pérez Galdós liberala da, eta haren **eleberrigintza** guztia ere arima espainolaren araketa bat da. Joxe Azurmendi

Conradek zioen, bere garaiko **eleberrigintza** gaitzetsiz, nobela haietako gehienetan kontatzen zena ez zela, azken batean, txiripa harrigarri batzuen pilaketa baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Goragalea mugarria da Sartreren sormenaren esparruan eta XX. mendeko **eleberrigintzaren** historia orokorrean. Monika Etxebarria

---

elebide *iz* hizpidea.

-Barkaezina zara -huxtukatuz bukatu nuen **elebidea**. Itxaro Borda

---

elebidun 1 *izond/iz* bi hizkuntzazkoa; bi hizkuntza dakizkiena. ik **elebakar**.

Nik euskaraz segitu nuen, eztabaida **elebidunean**. Joxerra Garzia

Euskal Herrian egin diren ikerketen arabera, ikasle **elebidunek** emaitza hobeak lortzen dituzte. Berria - Euskal Herria

Hiztun **elebidunon** itzulpen-gaitasunak. Lourdes Oñederra

Ez dugulako irakasle **elebidunik** topatzen irakasgai jakin baterako. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, 4.000 ikaslek jasotzen dute hezkuntza **elebiduna**. Berria - Mundua

Plan horretan irakaskuntza **elebidunaren** aldeko eredua bultzatzen da. Berria - Euskal Herria

Bretoiera erabiltzeko eskatuta, tren geltoki bat **elebidun** bihurtu dute. Berria - Mundua

Hendaia-Lissardy eskola publiko **elebidunak** ere salatzen du zuzengabeki kendua izan zaiola postu erdi bat. Herria

Bi sekzio **elebidun** ideki dira Azkainen eta Ziburun. Herria

Baionako diosesaren eta eliz elkarteen zerbitzurako den irrati bat, irrati **elebidun** bat, euskarak ere bere toki osoa segurta dezan Euskal-Herriko elizan. Herria

Bideak zuzentzen, bihurguneak ezabatzen, seinale **elebidunak** orokortzen. Itxaro Borda

Hirian gero eta ugariagoak ziren errotulu **elebidunak** bolada hartan. Iñaki Iñurrieta

Aldizkari **elebiduna** plazaratzen du. Berria - Euskal Herria

Euskara, zerbait izatekotan, gizarte **elebidun** batean izango da edo ez da deus ere izango. Pello Salaburu

Poesia klasikoaren edizio **elebidunak**. Anjel Lertxundi

Ziurta ditzala Administrazioan gehien erabiltzen diren testuen bertsio **elebidunak**. Berria - Harian

Hitz eta testu **elebidunak**. Iñaki Arranz

456 administrazio ataletatik 84 **elebidun** bihurtu behar ziren. Berria - Euskal Herria

Gazteriari begirako zerbitzuak **elebidunak** izan behar dira portzentaia horretan. Isabel Arrigain

Elebitasunaren kontra ageri da fierki, ez du ezagutzen berak munduan **elebiduna** den gizarterik: paperetan maizki **elebiduntzat** jotzen diren horiek ere ez omen dira praktikan batere **elebidun**, eta beti-beti hizkuntza batek bestea menderatzen du. Pello Salaburu

Elebiduna euskaraz eta frantsesez, mintzatuz eta idatziz, gazteliana eta inglesa jakitea hobe. Menane Oxandabaratz

Italiera eta latinezko **elebiduna**. Santiago Iruretagoiena

Ez daukat kontzientziarik noiz eta nola hasi nintzen **elebidun** sentitzen. Anjel Lertxundi

Hamasei ordu haietan haren deiadar **elebidunak** inguruko baserrietako txakur **elebidunek** bakarrik aditu omen zituzten. Iñaki Segurola

2 (izenondoekin)

BAM-en 10 000 **elebidun** eragile kondatuak izan dira eta beste 10 000 **elebidun** hartzaile, hots erdi euskaldunak. Herria

Euskaldunok, alegia, **elebidun** erreal bakarrak). Berria - Kultura

Gela **elebidun** berriak. Herria

3 (adizlagun gisa)

Herritarrei zuzendutako agiri guztiak, guzti-guztiak, **elebidun** kaleratzen ditugu. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitalpen elebidun (3); **atal elebidun** (11); **atal elebidun berri** (3); **atal elebidun bihurtu** (5); **bat elebidun** (3); **elebidun bat** (27); **elebidun bat ezarri** (3); **elebidun bat ideki** (3); **elebidun batean** (7); **elebidun baten** (5); **elebidun berri** (4); **elebidun bietan** (3); **elebidun bietan hobe** (3); **elebidun bihurtu** (12); **elebidun bihurtu behar** (8); **elebidun edo** (3); **elebidun hartzaile** (3); **elebidun izaitea** (3); **elebidun postu** (3); **elebidun publikoan** (3); **elebidun saila** (5); **erakaskuntza elebidun** (3); **eskola elebidun** (3); **eta elebidun** (3); **gela elebidun** (30); **gela elebidun bat** (13); **gizarte elebidun** (6); **ikasle elebidun** (3); **klase elebidun** (3)

bat elebiduna (5); **biblioteka elebiduna** (3); **elebiduna da** (14); **elebiduna dela** (4); **elebiduna ere** (3); **elebiduna euskara** (3); **elebiduna euskara frantsesa** (3); **elebiduna euskaraz** (3); **elebiduna euskaraz eta** (3); **elebiduna izan** (6); **elebiduna izan behar** (3); **elebiduna izatea** (3); **erakaskuntza elebiduna** (11); **ere elebiduna** (3); **eredu elebiduna** (3); **eskola elebiduna** (4); **euskal biblioteka elebiduna** (3); **gela elebiduna** (7); **hezkuntza elebiduna** (5); **irakaskuntza elebiduna** (6); **lehen gela elebiduna** (3); **liburu elebiduna** (7); **seinaletika elebiduna** (7)

administrazio atal elebidunak (4); **atal elebidunak** (10); **bide seinale elebidunak** (4); **dira elebidunak** (5); **direla elebidunak** (3); **elebidunak behar** (3); **elebidunak dira** (6); **elebidunak direla** (6); **elebidunak direla eta** (4); **elebidunak ere** (5); **elebidunak eta** (5); **elebidunak ez** (3); **elebidunak izan** (7); **elebidunak izan behar** (3); **elebidunak izanen** (3); **elebidunak izatea** (3); **elebidunak kontratatzea** (3); **eta elebidunak** (4); **ez dira elebidunak** (3); **ez direla elebidunak** (3); **gela elebidunak** (20); **guztiak elebidunak** (4); **irakasle elebidunak** (4); **seinale elebidunak** (9); **unitate elebidunak** (3); **zerbitzu elebidunak** (4); **zirkuitu elebidunak** (6)

edo elebidunez (3); **elebidunen besta** (5); **elebidunen kopurua** (5); **elebidunetako haurrek** (3); **elebidunetan dabiltzan** (4); **elebidunik ez** (4); **erakaskuntza elebidunaren** (5); **eredu elebidunetan** (4); **gela elebidunean** (3); **gela elebidunen** (15); **gela elebidunen besta** (4); **gela elebidunetako** (6); **gela elebidunetan** (25); **gela elebidunetan dabiltzan** (4); **gela elebidunik** (3); **gizarte elebidunean** (3); **irakasle elebidunen** (3); **klase elebidunen** (3); **lizeoetako gela elebidunetan** (3); **sail elebidunetan** (3); **seinale elebidunen** (4)

---

elebidundu, elebidun(du), elebiduntzen da/du *ad* elebidun bihurtu.

Euskara dakigunok, nahi ala ez **elebidundu** ginen noizbait. Herria

2002. urtea amaitu aurretik, **elebiduntzea** aurreikusi ziren 84 ataletatik bakar bat ere ez da helburu horretara iritsi. Berria - Euskal Herria

Geltoki ttikietan, seinaletika elebiduna, bozgoragailuetako mezuak **elebiduntzea** (horren aztertzen ari dira), ordutegiak ere **elebiduntzea** (hau ere aztertzen ari). Herria

---

elebiduntasun *iz* elebiduna denaren nolakotasuna edo egoera.

Saltegi handi zonbait plantatuak dira **elebiduntasunari**, eta atsegingarri da hori, bainan beste ainitz badira, biziki ainitz, ttipi eta handi, euskarari tokirik ez baitiote batere egiten! Herria

---

elebiko *izlag* elebiduna.

Elebiko edizioa, espainolez eta frantsesez. Pablo Sastre

Produktuek, herri honetan, **elebiko** azala behar dute.Egiten den hautua elebitasunaren aldekoa da, **elebiko** unibertsitatea, edo hirukoa, gure gizartea ere elebiduna denez. Pello Salaburu

Ganalto mendia, Arabako Badaia mendilerroan, **elebiko** errepikapena du oinarri: gan eta alto. Iñaki Arranz

Egiten den hautua elebitasunaren aldekoa da, **elebiko** unibertsitatea, edo hirukoa, gure gizartea ere elebiduna denez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

elebitan *adlag* bi hizkuntzatan.

Herriko Etxeak engaiamendu berezi batzu hartu ditu: bere deliberoak **elebitan** ezartzea, bilkura publikoak ere bi mintzairetan apailatzea. Herria

Mogelek lehenengo liburua gipuzkeraz idatzita zuen [...], bigarrena bizkaieraz [...] eta hirugarrena **elebitan**, hau da, hitzaurrea gaztelaniaz eta eleberria euskaraz. Askoren artean

Herri batzuetan lehen euskara hutsean egiten ziren bandoak, aktak eta bestelako agiriak **elebitan** egiten hasi direla. Berria - Harian

---

elebitasun *iz* elebiduna denaren nolakotasuna eta egoera.

Ingelesa hitz egiten zuten lantegian, kalean eta dendetan, eta italianoa gurasoen etxean, ia ohartu ere egin gabe hizkuntzaz aldatzen ari zirela etengabe; eta haien **elebitasun** erraz eta nekegabea oso komenigarria zen beraien guraso zaharrentzat. Iñaki Mendiguren

Nik ez nuen modu problematikoan bizi izan **elebitasuna**. Ana Urkiza

Elebitasuna ere praktikan ez omen delako posible; arrazoia eztabaidagarria begitandu dakiguke, zergatik ez da izango posible? Joxe Azurmendi

Elebitasunaren kontra ageri da fierki, ez du ezagutzen berak munduan elebiduna den gizarterik: paperetan maizki elebiduntzat jotzen diren horiek ere ez omen dira praktikan batere elebidun, eta beti-beti hizkuntza batek bestea menderatzen du. Pello Salaburu

Egiten den hautua **elebitasunaren** aldekoa da, elebiko unibertsitatea, edo hirukoa, gure gizartea ere elebiduna denez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bestetik, **elebitasunaren** faktorea ere kontuan hartu behar da hemen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

elebitza *iz* elebitasuna.

Elebitzak trebatzen: Izpiritua trebatuz euskarak aiseago ikas arazten ditu bertze mintzairak. Herria

---

eleder ik **ele 7**.

---

eledun *(ETCn **10.794** agerraldi; cf **bozeramaile** ETCn **23.403** agerraldi) iz* **1** prentsaurrekoetan eta, erakunde edo elkarte baten izenean mintzatzen dena. ik **bozeramaile**.

Hemen, *nabi'* 'profeta' ez da hitzaren esangura zehatzean hartu behar, Israelen inoiz honelakoak izan ziren arren, Samuel adibidez, kargu biak batera ukan zituztenak, baizik eta 'Jainkoaren ordezkaria edo **eleduna'**-ren balio generikoaz. Xabier Kintana

Gorka Torre, Demoen **eledunetako** bat, oso garbi mintzatu da beti bere taldearen filosofiaz. Txema Ramirez de la Piscina

Jaurlaritzaren **eledunek** ez dute adierazpenik egin ez Kupoaren ez Sevilla ministroak emandako azalpenen gainean. Berria - Ekonomia

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako **eledunak** Estatutua erreformatzeko proposamena «pitin bat berandu» datorrela kritikatu zuen. Berria - Euskal Herria

Hemingwayk berak, zioen albisteak, iraultzaileen **eledunarena** egin zuen. Edorta Jimenez

Askatasunako **eleduna** aske uzteko eskatu du CSPB elkartasun taldeak. Berria - Euskal Herria

«Artelanak testuingurutik kanpo ateratzea da, egia da» onartu du Santos Villanueva Artzapezpikutzako **eledunak**. Berria - Kultura

Nazio Batuen Erakundeko beste **eledunek**, ordea, Nabarroren kalkulua «okerra» zela esan zuten. Berria - Gaiak

Artistei ere zuzendu zaie *Aski da!* plataformako **eleduna**: Artistak ongiaren eta gaizkiaren gainetik daudela dirudi, nahi dutena egin dezaketela. Berria - Kultura

"Gutxitan ezagutu du gure herriak bakea, gutxitan ezagutu duelako justizia", erran zuen irmoki ekitaldi politikoa ireki zuen **eledunak**. Iñigo Aranbarri

«Nigeriako kasuak erakusten du nazioarteko larrialdi handi baten aurrean gaudela», esan zuen Samuel Jutzi **eledunak**. Berria - Gaiak

Jone Goirizelaia **eleduna** ñabardurak alde batera utzi eta zuzenketa onestearen aldeko agertu zen. Berria - Euskal Herria

Rafael Peralta **eledunak**, ordea, trebakuntza agintarien ezagutza gabe egin ahal izan zela onartu zuen. Berria - Harian

Stefan Edman biologoa, batzordeko idazkari nagusia, egitasmoaren atzean dagoen burmuina, eta «jenio hutsa», **eledunaren** arabera. Berria - Harian

EBko **eledunaren** esanetan, «indarkeriak ez du inolako tokirik Euskadin». Berria - Euskal Herria

Parlamentari **eledun** berriak. Berria - Harian

Ustekabean, hildakorik, zauriturik eta presorik gabeko gerra honek ez zuen militar bat izan **eledun**. Iñigo Aranbarri

2 (dagokion pertsonaren izenaren ezkerrean)

Eusko Jaurlaritzako **eledun** Miren Azkaratek ere SEPIren industri plana arbuiatu zuen. Berria - Ekonomia

Industriaren mesedetan aritu izana ukatu zuen atzo Osasunerako Mundu Erakundeko **eledun** Gregory Hartlek. Berria - Gaiak

EAko **eledun** Onintza Lasak 2002an Iruñean izan zen Munduko Pilota Txapelketan euskal federazioak parte hartu ezin izana gogoratu zuen. Berria - Kirola

Taldearen **eledun** Stephane Lhommek azaldu digu nuklearraren inguruan Frantzian gertatzen ari dena. Berria - Gaiak

Greba deialdiaren inguruan «gogoeta» egin behar dutela esan zien atzo EB-Berdeetako Lehendakaritzako **eledun** Mikel Aranak Batasunari eta LABi. Berria - Euskal Herria

Azken 25 urteotako ibilbideari so egin eta etorkizuneko erronkak zehaztu zituen Batasuneko **eledun** Arnaldo Otegik. Berria - Euskal Herria

Nafarroako ELAko **eledun** Jose Maria Otaegiren esanetan, «kezkagarria» da oso langabeziaren igoera abenduan, horrek eraikuntzaren sektorean izan dezakeen eraginagatik. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Patxi Lazkoz PSE-EEko udal **eledunak**, aldiz, ironiaz erantzun zien alkatearen akusazioei. Berria - Kultura

Ildo beretik, EAJko udal **eledun** Mikel Martinezek Alfonso Alonso alkateari hartutako neurriak ekarriko dituen «ondorio kaltegarriak» direla-eta, erabakia berraztertzeko eskaera egin zion. Berria - Euskal Herria

Gobernu **eledunaren** ustez, Konstituzionala ez da «mamian sartu, forman baizik. Berria - Euskal Herria

Alberto Catalan Gobernu **eledunaren** arabera, inputatuek batzordera joan beharko lukete «errua aitortzera eta dirua non dagoen argitzera». Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adierazi zuen eleduna (3); **aebetako armadako eleduna** (5); **al sadren eleduna** (5); **alderdiko eleduna** (9); **armadako eleduna** (16); **armadako eleduna batek** (5); **atzerri ministerioko eleduna** (14); **barne ministerioko eleduna** (4); **batasuneko eleduna** (16); **batasuneko eleduna arnaldo** (12); **batasuneko eleduna pernando** (3); **batzordeko eleduna** (8); **berdeak taldeko eleduna** (3); **berdeen eleduna** (3); **berdeen eleduna mikel** (3); **berdeetako eleduna** (4); **berdeetako eleduna mikel** (4); **buruzagi xiitaren eleduna** (3); **ccooko eleduna** (4); **ccooko eleduna pedro** (4); **departamenduko eleduna** (5); **departamentuko eleduna** (4); **duen eleduna** (13); **duen eleduna joan** (5); **eaeko ppko eleduna** (3); **eajko eleduna** (7); **eako eleduna** (7); **eb berdeen eleduna** (3); **eb berdeetako eleduna** (4); **eeko eleduna** (5); **eeko zuzendaritzako eleduna** (5)

eleduna ahmed (3); **eleduna akhmed** (3); **eleduna akhmed zakaievek** (3); **eleduna alberto** (6); **eleduna alfredo** (6); **eleduna alfredo perez** (6); **eleduna ali** (3); **eleduna arnaldo** (13); **eleduna arnaldo otegi** (5); **eleduna arnaldo otegik** (5); **eleduna batek** (51); **eleduna batek adierazi** (4); **eleduna batek atzo** (5); **eleduna batek jakinarazi** (3); **eleduna baten** (4); **eleduna bryan** (3); **eleduna dan** (3); **eleduna eduardo** (10); **eleduna eduardo zaplana** (3); **eleduna eduardo zaplanak** (7); **eleduna eta** (3); **eleduna farid** (3); **eleduna gisa** (4); **eleduna hamid** (3); **eleduna ignacio** (5); **eleduna ignacio astarloak** (4); **eleduna izandako** (3); **eleduna joan** (12); **eleduna joan ridaok** (6); **eleduna joaquim** (4); **eleduna joaquim nadalek** (3); **eleduna joseba** (3); **eleduna josep** (3); **eleduna juan** (4); **eleduna kargua** (3); **eleduna leopoldo** (8); **eleduna leopoldo barredak** (7); **eleduna maria** (3); **eleduna mark** (7); **eleduna mark kimmitt** (4); **eleduna mikel** (16); **eleduna mikel arana** (4); **eleduna mikel aranak** (8); **eleduna militar** (4); **eleduna militar batek** (3); **eleduna miquel** (4); **eleduna miren** (20); **eleduna miren azkaratek** (15); **eleduna nabil** (3); **eleduna nekane** (3); **eleduna onintza** (3); **eleduna onintza lasak** (3); **eleduna pedro** (4); **eleduna pedro rodriguezek** (4); **eleduna pernando** (3); **eleduna pernando barrenak** (3); **eleduna rodolfo** (10); **eleduna rodolfo aresek** (9); **eleduna saba** (3); **eleduna sami** (5); **eleduna sami abu** (5); **eleduna scott** (7); **eleduna scott mcclellanek** (5); **eleduna sean** (3); **eleduna sozialistak** (5)

elkarteko eleduna (9); **enpresako eleduna** (4); **erakundeko eleduna** (6); **estatu departamenduko eleduna** (4); **estatu departamentuko eleduna** (3); **eta eleduna** (9); **etxe zuriko eleduna** (8); **europako batzordeko eleduna** (3); **eusko jaurlaritzako eleduna** (16); **gaietarako eleduna** (4); **generalitateko eleduna** (6); **generalitateko eleduna joaquim** (4); **gobernuaren eleduna** (5); **gobernuko eleduna** (11); **gobernuko eleduna alberto** (3); **hamaseko eleduna** (7); **hamaseko eleduna sami** (3); **haren eleduna** (3); **honetako eleduna** (3); **indarren eleduna** (5); **independentistako eleduna** (3); **independentistaren eleduna** (3); **israelgo armadako eleduna** (5); **jaurlaritzako eleduna** (20); **jaurlaritzako eleduna miren** (20); **kide eta eleduna** (3); **kongresuan duen eleduna** (3); **kongresuko eleduna** (6); **legebiltzarrean duen eleduna** (5)

ministerioko eleduna (25); **ministerioko eleduna batek** (6); **ministerioko eleduna saba** (3); **ministroaren eleduna** (5); **nafarroako gobernuko eleduna** (4); **nagusiko eleduna** (3); **navaleko ccooko eleduna** (4); **nbeko eleduna** (3); **pentagonoko eleduna** (4); **pentagonoko eleduna batek** (3); **poliziaren eleduna** (3); **ppko eleduna** (16); **ppko eleduna eduardo** (4); **ppko eleduna leopoldo** (7); **ppren eleduna** (3); **presidente independentistaren eleduna** (3); **presidentearen eleduna** (5); **pscko eleduna** (3); **pscko eleduna miquel** (3); **pse eeko eleduna** (5); **psoeko eleduna** (5); **sadren eleduna** (5); **taldeko eleduna** (15); **xiitaren eleduna** (4); **zuen eleduna** (9); **zuen eleduna sozialistak** (3); **zuriko eleduna** (8); **zuriko eleduna scott** (6); **zuzendaritzako eleduna** (6); **zuzendaritzako eleduna rodolfo** (6)

alderdiko eleduna (4); **alderdiko eleduna** (4); **batasuneko eleduna** (6); **batasuneko eleduna** (6); **eleduna da** (13); **eleduna da** (13); **eleduna eta** (6); **eleduna eta** (6); **eleduna eusko** (3); **eleduna eusko** (3); **eleduna eusko legebiltzarrean** (3); **eleduna eusko legebiltzarrean** (3); **eleduna izan** (3); **eleduna izan** (3); **elkarteko eleduna** (3); **elkarteko eleduna** (3); **erakundeko eleduna** (3); **erakundeko eleduna** (3); **eusko jaurlaritzako eleduna** (4); **eusko jaurlaritzako eleduna** (4); **independentistako eleduna** (3); **independentistako eleduna** (3); **indipendenza alderdiko eleduna** (3); **indipendenza alderdiko eleduna** (3); **jaurlaritzako eleduna** (5); **jaurlaritzako eleduna** (5); **otegi batasuneko eleduna** (4); **otegi batasuneko eleduna** (4); **plataformako eleduna** (3); **plataformako eleduna** (3); **taldeko eleduna** (6); **taldeko eleduna** (6)

alberto catalan eledunak (3); **alderdiko eledunak** (4); **aldundiko eledunak** (3); **askatasuneko eledunak** (4); **atzerri ministerioko eledunak** (7); **azkarate eledunak** (5); **azkarate jaurlaritzako eledunak** (6); **batasuneko eledunak** (39); **batasuneko eledunak atzo** (3); **batzordeko eledunak** (7); **blairren eledunak** (3); **catalan eledunak** (3); **departamenduko eledunak** (3); **departamentuko eledunak** (3); **du batasuneko eledunak** (3); **du eajko eledunak** (4); **du ebbko eledunak** (3); **du gobernuko eledunak** (4); **duen eledunak** (8); **eajko eledunak** (12); **eako eledunak** (7); **ebbko eledunak** (8); **eeko eledunak** (3); **eko eledunak** (5); **elako eledunak** (3)

eledunak adierazi (11); **eledunak adierazi zuen** (3); **eledunak adierazi zuenez** (6); **eledunak atzo** (20); **eledunak atzo adierazi** (5); **eledunak atzo egindako** (3); **eledunak atzo esan** (5); **eledunak azaldu** (6); **eledunak azaldu zuenez** (3); **eledunak azpimarratu** (3); **eledunak egindako** (3); **eledunak ere** (8); **eledunak erredakzioa** (3); **eledunak esan** (9); **eledunak esan zuen** (4); **eledunak esan zuenez** (3); **eledunak eta** (5); **eledunak ez** (5); **eledunak gaineratu** (4); **eledunak gaineratu zuen** (3); **eledunak gogor** (4); **eledunak gogorarazi** (3); **eledunak hartu** (3); **eledunak hauxe** (3); **eledunak zera** (3)

elkarri ko eledunak (3); **elkarteko eledunak** (4); **erakundeko eledunak** (4); **estatu departamenduko eledunak** (3); **etxe zuriko eledunak** (5); **etxerat eko eledunak** (3); **europako batzordeko eledunak** (4); **eusko jaurlaritzako eledunak** (6); **gaineratu zuen eledunak** (4); **gobernuaren eledunak** (5); **gobernuko eledunak** (19); **hamaseko eledunak** (3); **jaurlaritzako eledunak** (26); **jaurlaritzako eledunak atzo** (3); **jaurlaritzaren eledunak** (5); **ko eledunak** (5); **kongresuan duen eledunak** (3); **ministerioko eledunak** (8); **miren azkarate eledunak** (5); **otegi batasuneko eledunak** (9); **permach batasuneko eledunak** (4); **ppko eledunak** (9); **salhaketako eledunak** (5); **taldeko eledunak** (11); **zuen batasuneko eledunak** (7); **zuen eledunak** (11); **zuen jaurlaritzako eledunak** (5); **zuen salhaketako eledunak** (4); **zuriko eledunak** (5)

azkarate eledunaren (11); **azkarate eledunaren ahotan** (5); **azkarate eledunaren bitartez** (4); **batasuneko eledunaren** (6); **batasuneko eledunaren esanetan** (3); **eajko eledunaren** (3); **eako eledunaren** (4); **eledunaren aburuz** (6); **eledunaren ahotan** (5); **eledunaren ahotik** (3); **eledunaren arabera** (12); **eledunaren bitartez** (5); **eledunaren esanetan** (13); **eledunaren hitzetan** (5); **eledunaren iritziz** (3); **eledunaren ustez** (12); **miren azkarate eledunaren** (11); **ppko eledunaren** (3)

alderdietako eledunek (3); **batasuneko eledunek** (4); **eledunen arabera** (3)

---

elefant ik **elefante**.

---

elefante *(orobat **elefant** g.er.)* **1** *iz* ugaztun handia, azal-zimurra, belarri-eroria eta sudur-luzea, bi letagin handi eta ageriak dituena *(Loxodonta sp.* eta *Elephas sp.)*.

Elefantea eskuarki animalia goxoa eta adiskidetsua da. Gotzon Garate

Elefanteak Afrikan eta Asia hegoaldean bizi dira. Joseba Sarrionandia

Piztia erraldoi bat zen, **elefante** bat bezain motel eta dorpea. Koldo Biguri

Elefante bat, adibidez, ezin baita luze-zabalean mugarik gabe hazi. Juan Garzia

Gerta liteke eltxo baten neurriko **elefantea** existitzea, bai eta **elefante** baten neurriko eltxoa ere; hori guztia -diote- arrazoimenak onargarri du. Xabier Kintana

Elefante bakoitzak oholez eginiko dorre sendo bana zeraman bizkarrean babeslekutzat, uhalez lotua. Elizen arteko biblia

Elefante bakoitzarekin aukerako bostehun zaldun zihoazen. Elizen arteko biblia

-Honek **elefanteen** hilerria dirudi -esan zion olgetan Lucyk aitari. Joxemari Iturralde

Bigarren itsua, ordea, **elefantearen** tronpa eman baitzioten ukitzera, ez zegoen inola ere ados. Joxerra Garzia

Esan nahi da ez dela betetzen, balio kontu hauetan, Bernard Shaw-ek **elefante** eta arkakusoei buruz zioena, alegia **elefantea**, normalean, txikiagoa izaten dela marrazkietan errealitatean baino, eta arkakusoa, alderantziz. Bernardo Atxaga

Azken batean, mundua **elefante** batek sustengatzen zuela uste bazen duela ez hainbeste urte, eta **elefante** hori bigarren **elefante** batek eta bigarren hori dortoka batek, argi dago dortoka hori zalantzak bakarrik sustenga dezakeela. Harkaitz Cano

Elefanteak gara, Patri, txindurriak zapaldutakoan min hartu dugula esanez kexatzen garen horietakoak. Hasier Etxeberria

Elefante baten antzera kulunkatzen baitzuen. Patxi Zubizarreta

Elefanteak eta antilopeak ehizatzen dituzte. Joxean Agirre

Pentsatzen dut, horren ildo beretik, umetan misterioak egoten direla: etxe abandonatuetan, **elefanteen** hilerrietan, medikuen burmuinetan. Unai Elorriaga

Elefanteen Pasabidearen kontrola bere gain hartu zuten tamilek. Berria - Mundua

2 (izenlagun eta izenondoekin)

Alfabeto hau izaki harrapaezina da, Neptuno planetan bizi den **elefante** erraldoiaren leinu berekoa. Bernardo Atxaga

Elefante izugarrien azpian kokiltzen den inurri baten antzera sentitzen nintzen. Jasone Osoro

Ez zituen irakurtzen unikornioak agertzen ziren liburuak, ez kilker jakadunak, arrautza hiztunak, ipotx miresgarriak, edota **elefante** hegaldariak agertzen zirenak ere. Javi Cillero

Elefante emeek ez dute arrazoi gehiegirik kontent izateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Diote ere badirela han alimalia miresgarriak, **elefante** zuriak, adar-bakardunak, eta ortzadarren kolorea duten xori izigarri ederrak. Aurelia Arkotxa

Eskaileren oinera iritsi nintzenerako, iruditu zitzaidan **elefante** zuri txiki bati eusten niola besoetan. Oskar Arana

Elefante gaixoen azken atsedenleku ziren aulki haietan jesarri zen. Edorta Jimenez

Sumatrako **elefanteak** bost urteren buruan galduko direla dio WWFk. Berria - Gaiak

Atzera bota zen Namibiak bertako **elefanteen** bolia kuota batez merkaturatu ahal izateko eginiko eskaera. Berria - Gaiak

Txori-bihotzeko **elefantea** izan behar nintzela esaten zidaten ordea. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elefante-ehizan ibili ziren Niloren eta itsasoaren artean diren lurraldeetan. Iñaki Iñurrieta

Eskaileratik **elefante** urrats baten hotsa urruntzen da; Dussel da, bere alde egin ezineko lekuan kontsolamendu bila doala. Josu Zabaleta

Elefante hanken itxurako galtza horiek. Pello Salaburu

Koipe izpirik gabekoak ziren bi xerrak, **elefante**-belarri bi miniaturan. Joan Mari Irigoien

Astar bat edo **elefante**-kumea hankaz gora botatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Iruditzen zitzaidan atsegin izango zuela Afrikako sabanan denboraldi bat egitea eta aholkuak ematea hango **elefante**-saldoak eta harrapakin diren animaliak -antilopeak eta ñuak- kudeatzeko. Xabier Olarra

Gudarostearen erdia eta **elefante**-taldea utzi zizkion, beraren erabaki guztiak betetzeko aginduz. Elizen arteko biblia

Erregeak berehala Nikanor, **elefante**-sailaren gudalburua, Judeako gobernari izendatu eta bidali egin zuen. Elizen arteko biblia

Izaro eta Saioari, zuen **elefante** bizkarretan atseden hartzen uzteagatik; Arrateri, noizean behin sudurra ukitzen uzteagatik. Eider Rodriguez

Elefante-sukar bat etorri ez balitzaio, Jainkoak bakarrik daki zer egingo zuen On Camillok. Koldo Biguri

Hasieran, **elefante** hilerria zela esaten zen, eta hori ez da horrela. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire errua al da ordea [...] ni sobran egotea, nire oinaze egiatiena, lehorrena, herrestan ibiltzea, eta astun jartzea, haragi gehiegirekin eta larru handiegiarekin aldi berean, itsas **elefantea** bezala, begi handi heze eta hunkigarri baina hain itsusiekin? Monika Etxebarria

Gaizkien pasatu zutenak, ordea, kartagoarren guda-**elefanteak** izan ziren. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

afrikako elefantea (3); **edo elefantea** (4); **elefante baino** (3); **elefante baino ez** (3); **elefante bat** (13); **elefante batek** (5); **elefante baten** (10); **eta elefante** (7); **eta elefantea** (8); **eta elefanteak** (4); **eta elefantearen** (3)

---

elefanteño *iz* elefante txikia.

Elefanteño bat erosi dut, opari xumea ene alabarentzat: han, urrun dagoen ene haurraren aurpegia ikusten dut hemendik loratzen, haurraren pozak aitaren bihotza bozkariatzen duela. Piarres Aintziart

---

elefantiasi *(orobat **elephantiasi** eta **elephantiasis**) iz* eritasun kronikoa, behe gorputz adarren hantura neurriz kanpokoak ezaugarritzen duena.

Hortik gaixotasunak datoz, hala nola hazteria, hazgalea eta garatxoak, edo eritasun larriak, esaterako minbizi-hantura, **elefantiasia** eta gangrena, eta halatan gorputzaren atal baten edo batzuen forma hondatu egiten da. Xabier Kintana

Bada **elefantiasia**, Egipto erdian, Nilo ibai inguruan sortzen dena eta inoiz ere ez beste inon. Xabier Amuriza

Ito arte edan behar izan zian **elefantiasiak** jota ez hiltzeko. Lopez de Arana

Bada **elefantiasia**, Egipto erdian, Nilo ibai inguruan sortzen dena eta inoiz ere ez beste inon. Xabier Amuriza

Ito arte edan behar izan zian **elefantiasiak** jota ez hiltzeko. Lopez de Arana

---

elegai *iz* hizketa-gaia.

Barmon Hotelaren paretik pasatzean, Maiana segur zegoen anaiak hor zuela ordutik anitzetan **elegai** ukan zuen Maialen hura gurutzatu. Itxaro Borda

---

elegaitz *iz* elegaiztoa.

Astearteak hortxe baitu, auskalo nondik, bere maldiziotxo **elegaitzekoa**, ostiralaren pareko Pello Zabala

---

elegaizto *iz* hitz gaiztoa.

Zazpigarrena da Jainkoa eta haren sainduak eta haiekin bizi diren deabruak eta gaixo dohakabeak berak betiere laidoztatzen eta madarikatzen dituzten oihu, negar, orro, laido eta **elegaiztoen** nahasketa. Piarres Xarriton

Elegaiztoak, gezurrak, jukutriak, lehenik, kolpeak, gero, zauriak gorputz-arimetan, eta gertatu zen gizon bat hil zutela. Michel Oronoz

Elegaizto hau erantsi zaio egutegiko hilabeteari ere: Ostiralez sartzen den ilhabetea, euritsu. Pello Zabala

---

elegant ik **elegante**.

---

elegante *(orobat **elegant** g.er.)* **1** *iz (pertsonak eta kidekoak)* dotorea.

Nor da Londresko Estazioan jaitsi den dama **elegante** hori, zehaztu gabeko adinekoa? Julen Gabiria

Amaz arrazionalki hitz egin beharko banu, primerako emakumea dela esango nuke: **elegantea**, azkarra, sen handikoa. Ana Urkiza

Aurpegi fineko mutil gaztea, arras **elegantea**. Janbattitt Dirassar

Izuak buruan danba jotzen zuen, mailukada bortitzez, kolpe bakoitzean puntaparix bat ziztatuz, erle **elegante** batek pozoiaz hil nahiko balu bezala. Jasone Osoro

Bada homeless mota bat hona etorri aurretik sekula imajinatuko ez nuena: homeless **elegantea**. Harkaitz Cano

2 (bestelakoak)

Angeluko leku **eleganteenetarik** bat duzu *Cyber-Bowling* birlategia. Herria

Elegantea zen Tolosa. Arantxa Iturbe

Ehun eta berrogeita hamar gonbidatutik gora Rouengo hotelik **eleganteenean**. Jokin Urain

Apartamentua **elegantea** zen. Iñaki Zabaleta

Karro zahar bat, **elegantea**. Pako Aristi

Solasaldi **eleganteak** izaten zituen Lucasek Arturasekin. Unai Elorriaga

Urak bere errotara eramaten ere onena delako, han ziren gehienak bereganatu zituelako, bere hitz jario **elegantearekin**, bere jakinduriarekin. Berria - Kirola

Arraza kontzeptuaren erabilera ez oso **elegantea**. Joxe Azurmendi

Andrea, fintasuna, dotorezia, emetasun heldu **elegantea**, zibilizazioaren produktua da. Koldo Izagirre

Aire **elegantearekin** eskaini zion besoa. Julen Gabiria

Karro zahar bat, **elegantea**. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan)

Elegante itxura zuen. Iñaki Zabaleta

4 (adizlagun gisa)

-Elegante zoaz, Martintxo! Pako Aristi

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tronu aretoa **elegante** eta apain zegoen atzo. Berria - Euskal Herria

Lokalaren atzealdeko zutabe baten ondoko aulkian zen Santos, **elegante** jantzita zegoela erizteko moduko traje eta gorbata grisak jantzita. Josu Landa

Gizon bizar-urdin bat, txikia eta kaxkarra izan arren, **elegante** jantzita bai, jaka berde eta gorbata zuri. Felipe Juaristi

Gero bada beste gauza bat amek **elegante** egiten dutena: semeak etxea erosten duenean, etxe hori bete. Berria - Kultura

Arsenalek bideratua du finalerdiko txartela, Juventus 2-0 menderatu ondoren; erasoan **elegante**, eta atzean sendo, garaiezin aritu da Hasi ginan eta **elegante**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
elegante bat (4); **elegante egunean** (5); **elegantea zen** (3); **eta elegante** (4)

---

eleganteki *adlag* era elegantean.

Baliteke Iban ziegatik begira egotea, eta badaezpada **eleganteki** igo duzu malda, burua tente, begitartea zimur. Eider Rodriguez

---

elegantzia *iz* dotoretasuna.

Irri maltzur eta maliziosik eragin izan didatela, zeren eta, bertzenaz, betiko dotorezia eta **elegantzia** edireiten baitiot, neuretzat anitzetan amestu izan dudan prosaren etsenplu eta jarraibide. Joan Mari Irigoien

Ez zuen begirik harentzat baizik, beretu zuen gorputz harentzat, Baionako burgesek arras dantza arruntzat zeukaten eta **elegantzia** ospetsuaren ezaugarrietarik urrun omen zen dantza haren erritmoek bultzatzen zuten gorputz harentzat. Elena Touyarou

Haize errota xuriek bere hegalen **elegantziaz** zerua zirikatzen bezala dute. Piarres Aintziart

Izigarrizko **elegantziaz** mugitzen zuen bere gorputza. Piarres Aintziart

Tonu malenkoniatsuan gehienetan, **elegantziaz** eta patxadaz aretoa bete zuen. Berria - Kultura

---

elegia 1 *iz* kexua edo deitorea gaitzat duen poesia lana. ik **eresi**.

The Nabarra euskal gudari haien aldeko hileta kantua da, hots, Francoren gerraontzi baten aurka bataila galdu zuen arraste-ontzi armatu bateko eskifaiaren **elegia**. Berria - Kultura

Hölderlin poetak zera idatzi zuen bere **elegia** batean, "hobe lo egitea adiskiderik gabe bizitzea baino". Bernardo Atxaga

Musika eklektikoa da, Carl Orffen neoklasizismotik gertu, heroikoaren eta **elegiaren** artean. Berria - Kultura

Elegiazko hitzak, begitarte larriak, zeremonia arauek, ez dute lekurik Hilezkorren artean. Juan Garzia

Horregatik, ezagutu nuelako eta hain maitea eduki nuelako, ez nuen parte hartu nahi bere omenezko lanturu eta **elegietan**, nahiago izan nuen, zalantzarik gabe berak nahiko zukeen bezala, pentsatzen segitzea bera esistitu izana bozkario itzelerako arrazoia dela. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Ibai beltzari ezin zitzaion begiratu; euskararen **elegia** sentimendua eraman ezina zen. Joseba Zulaika

---

elegiako *izond* elegiazkoa, elegiari dagokiona.

Eguzki pirata honenganako jarrera erabat anbibalentea, beraren planeta gatibuak zirelarik, zorrotz adierazia dago Katuloren biko errimatu **elegiakoetan** : [...]. Iñaki Mendiguren

Bere hitz haiek, **elegiakoak**, osaba Juanen heriotzako unean berean sortu zitzaizkion halabeharrez. Bernardo Atxaga

Gerra ondoren seminarioetan eta euskal aktibismo guneetan jaso genuen euskal kultura neurri handi batean kultura **elegiakoa** zen. Joseba Zulaika

Burutazio hauek egiten nituela afaldu ez duen gizaki amesti baten jarrera **elegiakoan**, mandoek, deskargatuak eta muturreko uhalik gabe, lasai ederrean hartzen zituzten sabaitik eskegiak zeuden belar onduak. Koldo Izagirre

---

elegiazale *izond* elegiaren zalea dena.

Maitasuna zorotasuntzat jotzea, berriz, gutxienez Platonenga-naino atzeratzen den ideia da, behin eta berriro agertzen den topikoa, eta **elegiazale** kronologiaz hurbilenak, Katulo, Tibulo, Properzio, eurtean daude euren helduaroko poemetan. Xabier Amuriza

Baita maitasuna sumintasun eta zorotasun gisan kontzebitu zuelako ere, horrek erromatar **elegiazaleak** azaltzen ari ziren ikuskera kolpatuko zuelarik. Xabier Amuriza

---

elegile *iz* hizlaria.

Italian, faxismo formalaren aroan, **elegile** handia izan zen Benito Mussolini. Iñigo Aranbarri

---

elegin *iz* hizlaria.

Ortzaiztar, eiheralartar, baigorriar, ezterenzubiar, irisartar, nahas mahas **eleginak** nintuen bazkaiterako tenorea jin artean. Herria

---

elehartze *iz* hitz egiten hastea.

Seinale elebidunak bultzatzen dituzte, gero eta gehiago dira **elehartzeak** bretoieraz hasten dituztenak Berria - Euskal Herria

---

elehirudun *izond/iz* hiru hizkuntzazkoa; hiru hizkuntza dakizkiena.

Salamancako Unibertsitatean egin zituen ikasketak: Filologia Bibliko **Elehirudunean** lizentziatua da. Berria - Euskal Herria

Liburu **elehiruduna** da, itzulpenak agertzen direlarik bai frantsesez bai espainolez. Herria

Eskolan ibili diren bertako jendeak gehienetan **"elehirudunak"** dira: badakizkite eskolan ikasi ingelesa eta 'filipino' ofiziala, baita ere etxeko hizkuntza "ez ofiziala". Ramuntxo Etxeberri

---

eleiz ik **eliza**.

---

eleka *(orobat **elaka**) adlag*

Ez da hor ñabardurarik, eta erregistro bat bakarra erabiltzen dugu, laua, burkanda eta **elakarik** gabea, kolorerik gabea, hila. Pello Salaburu

---

elekari 1 *iz* eleketaria.

Halaz aldi berean kuraiosak eta lazoak ginen, ausartak eta herabeak, **elekariak** eta mutuak, jakintsuak eta ezjakinak, itsusiak eta ederrak, gaiztoak eta onak. Arranguraren itoginak garai batean itxaropen **elekariarenak** ziren lekuak isiltasunaren osinarentzat irabazten suma daitezke Gesalibarren idatzietan. Itxaro Borda

Memena **elekariaren** gurutzatzeko zoritxarra baldin banuen, egunaren programa osoa itzul ipurdikatua kausitzen nuen. Itxaro Borda

Jaki preziatuaren gustu biziak eta adiskidearen **elekari** molde eztiak tenpesta ahantzarazi zidaten. Itxaro Borda

2 (izenondo gisa)

Sutondoan **elekari**, anitzetan kantari, so kliska tximistatsu batez gerizatzen zituzten borobil zuri hazi berriak. Itxaro Borda

Frantxuarekin gaua inguma bipiltzen iraganik, goizik jaiki ziren biak, mutikoa **elekari** eta Maiana mutu-lehertua. Itxaro Borda

Elekari baino ez zihoazen bi zangodunen itsasoan, berriro ere ene izpiritua eskapatzera utzi nuen. Itxaro Borda

---

elekatu, eleka(tu), elekatzen *(orobat **elakatu** g. er.)* 1 da *ad* hizketan jardun.

Luzaz elgarren artean **elekatu** ziren Lur, Gaueko, Basoi eta Ermita, bi lagunak joan zirelarik. Michel Oronoz

Latza kausitzen nuen irratian, enekin eskolan ibiliak demagun, garapen estrategiaz **elekatzen** hautematean. Itxaro Borda

Maite zuen bidaiatzea, eta jendearekin **elekatu** eta arizatea. Herria

2 du *ad* hitz egin.

Aunitz bizkaitarrek ez dutelakoz batuaz baizik **elekatzen**. Herria

Baionako apezpikuak ainitz euskaldun **elekatu** du, hemengo berriak aipatu, Kristoren Berri ona hedatu. Herria

Ez zuen behin ere **elekatu**. Eneko Bidegain

Ezagun zen ez zirela Michelcok aipatu Flandriar haietarik, baina ez nintuen **elekatu** nahi izan. Michel Oronoz

Zer atsegina enetzat norbait **elekatzea**. Aurelia Arkotxa

Ostalaritzako miseriez ordu erdiz **elekatu** gintuen, Charlyk eten arte. Aingeru Epaltza

Hainbeste jende badugu **elekaturik**, hainbeste aldiz esplikatuak ditugu gauzak, hainbeste aldiz uste izan dugu ongi pasatu zela eta ulertu zela, eta gero ez delarik erantzunik izan, [...]. Berria - Euskal Herria

Nahiz klasikoak diren ene argudioak, Erromako teologo edo Pariseko antropologo batzuen irakaspenetarik ateraiak, bai eta ere berdin, **elekatzeko** zortea izan dudan idazle ezagun zenbaiten solasei edekiak. Piarres Xarriton

---

eleketa **1** *adlag* hizketan.

Patrice, azkenean, isildu zelarik, Emma hasi zen **eleketa**. Daniel Landart

Entzun nituen logelan **eleketa**. Daniel Landart

Hango jendearekin, gartsuki hasten zen **eleketa**, betiko adiskideak balira bezala. Daniel Landart

Hiru apez entzun nituen, beren alimaleko kapeluak buruan eta beren kapa beltz zabaletan bildurik, hotelaren aitzinean **eleketa**. Koldo Izagirre

Ari izan gara **eleketa** presoez,bai eta giristino onak larunbateko kermezan izan behar zituzkeela Jainkoarekin akort izaiteko. Herria

Ametsetarik ari hintzan, norekilan ari hintzan **eleketa**? Michel Oronoz

Eleketa arizan ginen sobera asaldatu gabe, hitz minkorrik gabe. Marzel Etxehandi

Hiru bidaiariak bulegoen aitzineko zurezko eskaileretan **eleketa** ari ziren bi andere gazte eta xarmantengana hurbildu ziren. Aurelia Arkotxa

Bon, ezkertiarra zen, bainan gogotik egon zen **eleketa** nerekin. Menane Oxandabaratz

Egoten ginen biak **eleketa**, gure apezgoaz eta elkarrekin ohartuz haurtzaroan ezagutu genuen mundua mustupilka zihoala. Piarres Aintziart

Ari izan gara **eleketa** presoez,bai eta giristino onak larunbateko kermezan izan behar zituzkeela Jainkoarekin akort izaiteko. Herria

2 *iz* hitz egitea.

Baina heinean behar düzü, **eleketa** eta behatzea beharrezkoak dütüzü. Menane Oxandabaratz

Lagunaren **eleketa** firfira jasangarri baten gisara egokitzen zen ene belarrietara. Aingeru Epaltza

Sentimenduek, bihotza gertutik ukitzen dutenez, mintzaira bizia eskatzen dute, ez hizkera hitsa edo **eleketa** zuhaila. Pello Salaburu

-Zaude erne hamabost egunez bederen bisita luzerik ez, **eleketa** luzerik ere ez. Marzel Etxehandi

Oihuei jarraiki, zaindarien urratsen hotsa eta **eleketa** nahasia entzunen dira, kontrol aldera urruntzen. Xabier Montoia

Kanpoko marmaria ez zegokion orain **eleketa** arrunt bati, bi gorputzen arteko ekinaldiari baizik. Aingeru Epaltza

Taberna nire adintsuko aita-amez beterik zegoen, jan-edanari edo **eleketari** trankil demonio emanak. Aingeru Epaltza

---

eleketaldi *iz* hizketaldia.

Eleketaldian jalgitako datuak -zernahi zirela- erregistraturik gelditzen ziren, gure lagunaren oroimen apartekoan Aingeru Epaltza

---

eleketari **1** *izond* asko hitz egiten duena; hitz-jarioa.

Eleketaria zirea ala isila? Menane Oxandabaratz

Taxi kolektibo batean kokatu ginen, bretoindar batuaz ari zen turista familia **eleketariaren** parrean. Itxaro Borda

Familia horren bedeinkazio **eleketarien** erdian, iduri nuen ez gutxi drama bateko heroi bat, bururatze agerraldian. Jon Muñoz

2 (izen gisa)

Eleketari xarmanta. Daniel Landart

Eleketari ederra baita, badaki dena itzuli-mitzuli solasaren azkarki luzatzen. Herria

Eleketari atsegina zen, baina sekulan ez zuen hitzik laxatzen bere familiari buruz. begi urdin bixiak zeuzkan eta **eleketari** gozoa zen. Elena Touyarou

Eleketari pollita, konpainiako gizona, berekin zaukan etxetiarrek duten ttipien handitasuna. Herria

Egia da, ofizioko jende horiek ez dira **eleketari** trebeak, ez dira "élégants" hoietarik, ez dira diplomatak. Menane Oxandabaratz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eleketari ederra** (4)

---

eleketatu, eleketa(tu), eleketatzen **1** da *ad* elekatu.

Orain bietan ari naiz, isilik eta **eleketatuz**. Menane Oxandabaratz

---

elekide *iz* hizketa-lagun.

Goiz nabar haietan hatsa bahitua, antsiaz hanpatua eta izerditan iratzartzen nintzen, karriketan herrestan **elekide** bila ibiltzen hasteko irrikaz. Itxaro Borda

---

elektoral *izond* hauteskundeena, hauteskundeei dagokiena.

Hemen hauteskunde **elektoralei** garrantzi handia eman zaie, eta artikulatuari eta subiranotasunari, aldiz, gutxi. Berria - Mundua

Ezker abertzalearen eremu **elektorala**. Berria - Euskal Herria

Ezker abertzaleak azken hiru erronka **elektoraletan** lortutako emaitza onak. Berria - Euskal Herria

Hau izan da Batasuna sortu denetik hitzordu **elektoral** bakoitzean defendatu dugun jarrera. Berria - Euskal Herria

Ibarretxek ezker abertzalearen bazterketa gauzatuko duen prozesu **elektoral** bat burura eramanez urrats larria egin du. Berria - Harian

ETAri bideo **elektoral** batean lekua uztea adierazpen askatasuna iruditzen al zaik? Pako Aristi

Agintean den indar politikoaren aukera **elektoralak** maximotzeko helburuaz. Iñaki Heras

Madrilen UPN-PSNren «fronte **elektorala**» apurtzeko aukera nabarmendu du Barkosek. Berria - Euskal Herria

«Delitu **elektorala**» egitea egotzita, zazpi kidek deklaratu dute. Berria - Euskal Herria

Elkarrizketa sozialaren kostuak (**elektoralak** batez ere) txikiagoak direlako. Berria - Euskal Herria

Penagarria zera da, azkenean zerrenda hauen legalizazioa PSOEren kalkulu politiko eta **elektoralen** arabera egingo dela. Berria - Harian

Alderdikeria alde batera utzi, irabazi **elektoralak** ahaztu, eta benetako prozesu demokratikoa egiteko ahalegina guztiok egin behar dugu. Berria - Harian

Zaplanak «lotsagarritzat» jo zuen adierazpena eta helburua «etekin **elektorala** » ateratzea zela erantzun zion. Berria - Mundua

Dei egin dio Jose Luiz Rodriguez Zapateroren gobernu taldeari iruzur **elektoralik** ez egiteko. Berria - Euskal Herria

Dinamika erretoriko honek zulo beltz baten moduko babes **elektorala** eragin zuen azkenean. Berria - Mundua

Azken hiru hauteskunde deialdietan erakutsi du bere «oinarri soziala eta **elektoralari** » eusteko gai badela. Berria - Euskal Herria

Egin beharreko lana babesteko, gorabehera politiko eta **elektoraletatik** blindatzeko. Berria - Harian

Egitekotan ikuspuntu **elektoraletik** egingo dutela. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aukera elektoral eta (3); **delitu elektorala** (3); **elektoral bat** (3); **elektoral eta** (4); **elektoral eta programatiko** (3); **eta elektorala** (6); **hitzordu elektoral** (3); **interes elektoralak** (3); **politikoa eta elektorala** (3)

---

elektoralismo *iz* helburu nagusitzat haustekundeak irabaztea duen jokaera politikoa.

Xiitek **«elektoralismoa** » leporatu diote Bushi. Berria - Mundua

Okerragoa litzateke norbaitek bake prozesuaren eta normalizazioaren denborak kontrolatzea **elektoralismoa** egiteko. Berria - Euskal Herria

---

elektoralista *izond* elektoralismoz egiten dena.

PSOEk helburu **elektoralistekin** jarduten du, bere jokabidearekin PPk bere aurka erabili zitzakeen argudioak indargabetu nahi dituelako. Berria - Euskal Herria

Aranaren aburuz, «ez da serioa» EAEko autonomiari buruzko eztabaidan interes **elektoralistak** aurretik jartzea. Berria - Euskal Herria

Tamalgarria iruditzen zaigu prozesuan bakearen aldeko interesen gainetik Sanz hartzen ari den jarrera **elektoralista** . Berria - Euskal Herria

Josep Lluis Carod-Roviraren eta ETAren arteko bilerarekin PPk izandako jokaera **elektoralistak** Ituna hilzorian utzi bazuen ere, Ituna bizirik dagoela esan dute burukide sozialistek hauteskundeak irabazi ondoren ere. Berria - Euskal Herria

PSE-EEk aurkeztutako estatutu erreformarako proposamena «iruzurra» dela uste du Ezker Batuak; «propaganda **elektoralista** hutsa» dela. Berria - Euskal Herria

Jakina da inaugurazio kontu hau **elektoralista** samarra, kursia ez esatearren, izan ohi dela bazter guztietan. Pako Aristi

---

elektoralki *adlag* ikuspuntu elektoraletik.

Lau milioi hautesle dituen barruti batean, abertzale bat hirugarren postuan ezartzeak Berdeei ez die **elektoralki** gauza handirik ekartzen. Berria - Euskal Herria

Elektoralki ere kredibilitatea irabazi dugu. Berria - Euskal Herria

Elektoralki , hori luparekin begiratzen da. Berria - Euskal Herria

---

elektra (hitz elkartuen lehen osagai gisa, 'elektriko' esanahiarekin)

Susmatzen ez zuena zen, aulki elektriko haiek ez zutela **elektra** -indarra berezko eta jainkotiar iturrikoa, argindarra behar zutela funtzionatuko bazuten, eta garai hartan, Abisinian, ez zuten halako aurrerapenik. Harkaitz Cano

---

elektragailu ik **elektrogailu**.

---

elektratresna ik **elektrotresna**.

---

elektrifikapen *iz* elektrifikatzea.

Sail hau **elektrifikapen** Sindikatuarekin eskuz esku darama. Herria

---

elektrifikatu, elektrifika, elektrifikatzen **1** du *ad* elektrizitatez hornitu.

Ginnyk salto egin zuen, aulkia **elektrifikatu** baliote bezala. Iñaki Mendiguren

Oihan honetara etorri nintzen, oihan osoa **elektrifikatu** eta Mark Knopfflerren kantak etengabe entzunarazteko asmoa duen konpainia batentzat lan egitekotan, elektrika jartzen laguntzeko. Jon Alonso

Eskumatara bestalde, ordurako ezaguna genuen txarrantxa-hesia, baina harriduraz jakin dut **elektrifikatuta** dagoela. Urtzi Urrutikoetxea

Orain kanpaijolerik apenas nola dagoen -eta ez juxtu **elektrifikatu** zirelako-, bildutakoa norentzat...? Pello Zabala

Akustikoa hartu zuen (**elektrifikatua** zegoen) eta horrela hasi zen akorde eta soloen dantza. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Zelai osoa hesitu zuen, eta gero putzua kable **elektrifikatuz** inguratu zuen oso-osoa. Koro Navarro

Auzo horiek harresi **elektrifikatuaz** inguratuak dira. Ramuntxo Etxeberri

Errausteko labetan ez omen zitean sartzen ikusi, txarrantxa **elektrifikatuetan** ere ez genian atzeman, tiro hotsik ez zian inork sumatu. Koldo Izagirre

Neuk egin behar nikek lasterka txarrantxa **elektrifikatuetaraino** ! Koldo Izagirre

Lagun pare bat du berarekin: bata baterian eta bestea gitarran eta biolin **elektrifikatuan** . Berria - Kultura

Botikak mahai gainean bezala barrukietan metatua geneukan urduritasuna deskarga ia **elektrifikatua** bilakatu zen irribarre horretan. Sonia Gonzalez

---

elektrifikatzaile *iz* tresna elektrifikatzailea.

Buenok aurreratu zuenez, Elgoibarko zentroan elektroerosioko makina berri baten prototipoa eta **elektrifikatzaile** eredu berri bat osatuko dituzte. Berria - Ekonomia

---

elektrika[1] *(ETCn **648** agerraldi; cf **elektrizitate** ETCn **4.892** agerraldi)* **1** *iz* elektrizitatea.

Urik eta **elektrikarik** gabe, gaizki edo batere jan gabe, seme-alabei berena baino bizimolde eta etorkizun hoberik eskaini. Xabier Montoia

Oihan osoa elektrifikatu eta Mark Knopfflerren kantak etengabe entzunarazteko asmoa duen konpainia batentzat lan egitekotan, **elektrika** jartzen laguntzeko. Jon Alonso

Herri batzuetan, **elektrika** moztu dute, sua hurbiltzen ari-eta argia furnitzen duten muntadura batzuetarat. Herria

Enpresek baliatzen duten **elektrikaren** kontsumoa emendatu da % 4,5-ez joan den urtean. Herria

Zartagailu batzuk ezarri zizkioten eta egileak joan ziren Ondarrolara buruz, handik zartarazteko **elektrikaz**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Elektrikako lanak. Herria

Etxeko **elektrikako** konponketak berak egiten zituen. Jon Alonso

Elektrikako sindikatari emanak izan zazko lan eta kargu batzu herriaren gain zirenak. Herria

Alemanek laster zuten mugimendu arrotza begistatua, **elektrikazko** argirik gabe ere. Eneko Bidegain

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez bat eta ez bi jotzen hasten ziren, batean zela **elektrika** hariekin, bertzean azoteekin. Eneko Bidegain

Zoladurak zituen urradura batzuetatik **elektrika** kableetara sua hedatu dutela labe nagusiko itxindi batzuk. Herria

Elektrika zentro batean gertatu baita, argirik eta indarrik gabe jarri dira inguru hek. Herria

Badira Luzaiden hiru **elektrika** ola edo fabrika, XX. mende hastapenean eraikiak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zurezko **elektrika**-posteen gainetik igande goiz honen bakean. Aurelia Arkotxa

Ura, lurruna, **elektrika** indarra falta ziren. Juan Garzia

---

elektrika[2] ik **elektriko**.

---

elektrikadun *iz* elektrizitatea duena.

Elektrikaren eskasa lehen, egunean sei orenetarik biga dituzte **elektrikadunak**. Herria

---

elektrikara 1 *iz* arranpa elektrikoa.

Otadui enpresan lanean ari zela, **elektrikara** bat jaso zuen. Berria - Ekonomia

Nahi gabe igurtzi nion ezkerreko bularra eta berriro sentitu nuen **elektrikara**. Jasone Osoro

Esan gabe doa, neure ardurapean ditudan hexagonoetan, ez baitira gutxi, den alerik bikainenak Ostots orraztua duela izenburu, eta beste batek Igeltsuzko **elektrikara** eta beste batek Axaxas mlö. Juan Garzia

2 irud/hed

Eskubideon prezioa jaitsi da merkatuan, handizkarien energiaren prezioa jaitsiz eta, ondorioz, argindar sektoreak **elektrikara** jaso zuen atzo: EDF (- %4,18) izan zen kaltetuena. Berria - Ekonomia

---

elektrikari *iz* instalazio elektrikoetan lan egiten duen pertsona.

Gure aitzinetik pasatzen zirenek, dela hargin ala zurgin, dela **elektrikari** ala igeltsari, denek, hitzeman baino biziki beranduago bukatzen baitzuten beren lana. Daniel Landart

Jantziak eta leherkari zakutxoak. **Elektrikari** jantziak eta leherkari zakutxoak. Josu Zabaleta

Hire aita berriro irakasle bezala lanean hasia zuan, eta ni **elektrikari** gisa. Josu Zabaleta

Sartzen ikusi gintian, **elektrikari** jantzita. Josu Zabaleta

Poliziek zazpi balaz hil zuten **elektrikari** brasildarra, Londresen gertatu ziren atentatuen biharamunean. Berria - Mundua

André Rivière, **elektrikari** gazte bat, kanadarra jaiotzez. Irene Aldasoro

---

elektrikatu *izond* elektrizatua.

Azken kintze horietan erran behar da **elektrikatua** iduri zuela Biscoubyk bere gaztearen alde eta heiena da ondarrean auzia. Herria

---

elektriko *(orobat **elektrika** g.er.)* 1 *izond* elektrizitatearena, elektrizitateari dagokiona; elektrizitatez dabilena. ik **elektrizitate 3**.

Presio mekanikoaren ondorioz korronte **elektrikoa** sortzeko gaitasuna. Irene Aldasoro

Eztanda bortitz batek baino ezin zuen askatu airean pilaturik zegoen tentsio **elektriko** itzel hura. Karlos Zabala

Nerbio-zuntz batetik igaro daitekeen energia **elektrikoa** ez dela aski muskulu-zuntz bat estimulatzeko. Irene Aldasoro

Hipotalamoa suntsitu deskarga **elektrikoen** bidez. Luis Elberdin

1.500 voltioko deskarga **elektrikoa** bere gorputzetik batere kalterik sortu gabe pasatzen zela ikusi ondoren. Harkaitz Cano

Haien eskuinaldean, urrun, tren **elektriko** batek txistu egin zuen. Lopez de Arana

Txapa **elektriko** batean kafe-eltzea berotzen jarri zuen. Iñaki Zabaleta

Bizar-makina **elektrikoa** hartu nuen karteratik. Joxe Austin Arrieta

Zerra **elektriko** txiki bat zeraman berarekin. Iban Zaldua

Gauak arku **elektrikoek** isuritako esne distiratsua birrintzen zuen. orratz handia kendu eta txikia utzi borne **elektrikoarekin** kontaktua egin dezan. Lopez de Arana

Punpa **elektriko** eta diesel indartsuak erabiliz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Marivale-tarrek gosaria hartzen ari ziren argi **elektrikoaren** pean. Lopez de Arana

Gauean, kalea baretu egiten zen foku **elektriko** handien argi bakarrean. Jose Morales

Hango eraikin garaiek argi-koroa bana zuten euren inguruan, kaleen eta iragarki **elektrikoen** distira gorrixkak sortarazia. Lopez de Arana

Molekula batzuek dipolo **elektriko** bat daramate beren baitan, hots, ipar orratz ñimiñoak bezala jokatzen dute eremu **elektriko** batean. Juan Garzia

Agian estalki **elektrikoak** sortutako beroa zela-eta, neskatoaren sorbalda biluzia agerian zegoen. Ibon Uribarri

Sare **elektriko** normal batean, eroalearen erresistentzia gainditzen galtzen da energia asko. Irene Aldasoro

Identifikatu ezin zituen gailu mekaniko eta **elektrikoak** ikusi zituen Josebak. Fernando Morillo

Esnea eta ura berotzeko labetxo **elektriko** bat ere utzi dit. Harkaitz Cano

Ile pikatzeko **elektrikoa** hartu eta zist-zast mozten zituen. Eneko Bidegain

Isolatzaile **elektriko** ere bada azala, lehor dagoenean batez ere. Irene Aldasoro

Lozioaren lurrina atzeman zezakeen; bibragailu **elektriko** baten burrunba eta artazien hotsa entzuten zuen. Lopez de Arana

Irrati-igorgailu batek sortzen ditu seinale **elektriko** horiek. Irene Aldasoro

Ingeniari **elektrikoek** inpedantzia-parekatze izenez ezagutzen duten arazoaren adibide bat da. Irene Aldasoro

2 irud/hed

Giroa **elektrikoa** izango da, karga positibo eta negatiboz gainezka, argi psikodeliko eta itzelezko zaratarekin. Joseba Sarrionandia

Katuen begirada **elektriko** gautar hori galtzen ari da. Harkaitz Cano

Artean lausoturik ikusten zituen langar bioleta **elektrikoan** aienatutako salmahai luzeak. Lopez de Arana

Rosiek orratz batez josi zituen arrosak bere larruzko berokian, besotik heldu zion eta ate birakaritik irten ziren gau **elektriko** hotz distiratsura. Lopez de Arana

3 ***aulki elektriko*** heriotzera kondenatuak exekutatzeko erabiltzen den aulki modukoa.

1888. urtean, Buffaloko gobernadoreak Westinghouse elektratresnen enpresari enkargua egin zion **aulki elektrikoa** fabrika zezan. Antzinako zurezko **aulki elektriko** bat zegoen lokalaren goiko pisuan, uhal eta gutzi. orduak ematen ditu behar duen argazki horrexen bila, eta azkenean aurkitzen du: Sing Sing espetxeko **aulki elektrikoa** da. Harkaitz Cano

Hamabi urte geroago, 1960an **aulki elektrikoan** hil zuten Caryl Chessman. Pablo Sastre

Soinudun zinema indar guztiarekin ("Jazz kantaria") plazaratzen zen urte berean txirtxilatu zituzten **aulki elektrikoan** , Frantziar bat da, ausaz **aulki elektrikoan** kiskaliko dutena. Pello Salaburu

Cellier diputatuak lege bat aurrera ateratzea lortu zuen, AEBetan pertsona bera birritan **aulki elektrikora** eramatea debekatuz. Harkaitz Cano

Borreroa, erretegi baten ondotik pasatzen denean, **aulki elektrikoarekin** akordatzen da ezinbestean. Karlos Linazasoro

4 ***tresna elektriko***

Bizitzeko manuala beharko genuke, **tresna elektrikoak** erabiltzeko bezalakoak. Lander Garro

Gauetan, **tresna elektrikoen** dendara joaten ginen, erakusleihoan telebista ikustera. Juan Kruz Igerabide

Milaka txinatarrek Japoniatik eta Estatu Batuetatik inportatutako telebista zaharrak, hozkailuak eta bestelako **tresna elektrikoak** birziklatzen egiten dute lan. Berria - Gaiak

Tresna elektriko arras sofistikatuak erosi nituen Honoréren sukalderako, gogo ezin hobeaz hartu baitzituen etxerako joera berri haiek. Joxan Elosegi

Tresna elektriko nahiz elektronikoak erabiltzen ditu. Berria - Kultura

Arropak, altzariak, etxeko **tresna elektrikoak**, oro errausturik. Berria - Euskal Herria

Langile-jendeak [...] diru apur bat eskuetan izan orduko, izozkailuak, irratiak, eta antzeko etxe **tresna elektrikoak** erosten zituzten. Mirentxu Larrañaga

Egungo **tresna elektriko** gehienak ezin dira itzali, 'stand-by' egoeran utzi baizik, lotan, eta, ikerketen arabera, etxeko argindarraren kontsumoaren %10 alferrik galtzen da horrela. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argi elektriko (6); **argi elektriko bat** (3); **arku elektriko** (4); **arku elektriko baten** (3); **bulkada elektriko** (9); **bulkada elektriko bihurtzen** (3); **deskarga elektriko** (6); **dorre elektriko** (3); **elektriko bat** (31); **elektriko batean** (4); **elektriko batek** (6); **elektriko batekin** (3); **elektriko baten** (16); **elektriko bihurtzen** (5); **elektriko eta** (10); **elektriko txiki** (7); **elektriko txiki bat** (4); **energia elektriko** (4); **etxetresna elektriko** (4); **gitarra elektriko** (3); **haizagailu elektriko** (3); **instalazio elektriko** (3); **korronte elektriko** (9); **korronte elektriko txiki** (3); **motor elektriko** (4); **seinale elektriko** (6); **tresna elektriko** (10); **zartada elektriko** (4); **zentral elektriko** (5)

argi elektrikoa (4); **aulki elektrikoa** (7); **deskarga elektrikoa** (4); **elektrikoa da** (4); **elektrikoa eta** (8); **elektrikoa hartu** (5); **elektrikoa hartu eta** (3); **elektrikoa izango** (3); **energia elektrikoa** (6); **eta elektrikoa** (3); **gitarra elektrikoa** (7); **hari elektrikoa** (5); **itxitura elektrikoa** (3); **jarduera elektrikoa** (4); **korronte elektrikoa** (7); **motore elektrikoa** (3); **sare elektrikoa** (8); **zentral elektrikoa** (5)

argi elektrikoak (3); **aulki elektrikoan** (8); **aulki elektrikoan** (8); **borra elektrikoak** (3); **bulkada elektrikoak** (3); **deskarga elektrikoak** (8); **elektrikoak eta** (6); **elektrikoak ez** (3); **elektrikoak jasotzen** (3); **estalki elektrikoak** (4); **etxetresna elektrikoak** (12); **fagor etxetresna elektrikoak** (7); **kansaiko konpainia elektrikoak** (5); **konpainia elektrikoak** (5); **seinale elektrikoak** (4); **tresna elektrikoak** (7); **zentral elektrikoak** (5)

arku elektrikoek (3); **aulki elektrikora** (5); **direkzio elektrikoen** (4); **direkzio elektrikoen salneurria** (3); **elektrikoen araudia** (5); **elektrikoen salneurria** (3); **elektrikoen salneurria merkatzeko** (3); **elektrikora eraman** (3); **etxetresna elektrikoen** (5); **sare elektrikoen** (5); **sare elektrikoen araudia** (5); **tentsioko sare elektrikoen** (5)

---

elektrikoki *adlag* elektrizitatearen bidez.

Duela mende erdi bat jakin zen argi zurizko puntu bat erregistratzen duela begiak ikusmen-kortexaren gaina **elektrikoki** estimulatzen denean; elektrodo estimulatzailearen kokapenarekin loturik dago puntuaren ustezko posizioa. Irene Aldasoro

Eredu horrek, ordea, ez du onartzen memoria oso banaturik egotea garuneko ehun multzo handi samar batean, ez eta garuneko zelula multzo bat **elektrikoki** estimulatuz gogoratzen diren oroitzapenak ez galtzea, nahiz zelulok operazioan desegin. Irene Aldasoro

---

elektrizatu, elektriza, ekektrizatzen **1** du *ad* elektrizitatez kargatu.

Emaztea, ileak derrepente **elektrizatuta** , buruz behera joan zitzaion haragi zirpilari, garrasika. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina hori da egia, Siddal ikusi nuela, ile gorria izugarri luzatuta, **elektrizaturik** bezala harrotuta, sutan zirudiela, distiratsu. Ramon Saizarbitoria

2 (era burutua izenondo gisa)

Hamidari iruditu zitzaion ezen mutilak ez zuela hezurrik ez artikulaziorik, edota kautxu puska **elektrizatu** bat zela. Patxi Zubizarreta

3 irud/hed

Elektrizatu egiten gintuen, munduaren azken muturreraino eramanen gintuen. Monika Etxebarria

---

elektrizien *iz ipar* argiketaria.

Joanden astean zendu da 64 urtetan minbiziak harturik, Gerard Blanchet **elektriziena** . Herria

---

elektrizista *iz* argiketaria.

Espainiako indar armatuekin lan harremana duten euskal herritarrei **«elektrizista** , okin, sukaldari, zurgin, administrari, mekaniko, autogidari eta abar» «harremanak mozteko» eta «laguntza gehiagorik ez emateko» eskatu zien. Berria - Euskal Herria

Aski kalipu baitzuen linterneroak eta igeltseroak gobernatzeko, **elektrizistak** eta ebanistak arrastoan sartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrela, okulista eta begizainek bera dute zaindari; baita **elektrizistek** ere. Pello Zabala

Elektrizisten burua Tranbien Zentralean. Berria - Euskal Herria

---

elektrizitate **1** *iz* energiaren eretako bat, elektroi, protoi eta kidekoen higiduran agerian jartzen dena; zama elektrikoak eragindako gertakarien multzoa; korronte elektrikoa. ik **argindar**.

Hodei partikulatxoak, pixkaka, **elektrizitatez** kutsatzen doaz. Pello Zabala

Aro ona zen oraindik, baina eguratsa gero eta astunago zegoen, eta **elektrizitatez** betetzen ari zen nabarmenki. Karlos Zabala

Erregai-pilak **elektrizitatea** eta beroa sortzeko erabilitakoan, CO2ren emisioak %30 jaits daitezke. Berria - Gaiak

Esku-orri haietako gomendioak zehatz-mehatz azaldu ziren: zer egin etxeekin, zer egin gasarekin eta **elektrizitatearekin** eta igogailuekin. Karlos Linazasoro

Diru horrek doi doia estali baditu "Baigur Itzal" batasunaren urteko gastuak (asurantza, tatsak, **elektrizitatea**, lan ttipi batzu eta beste...). Herria

Sektore honetako adar handi gehienak estatuaren monopolio zirelako: **elektrizitatea**, ura, telekomunikazioak, aireko garraioak, bankuak, aseguruak. Koro Navarro

Ama zenak ez zuen berrikuntza hori onartzen, eta hura hil eta gero geu izan gara, dirua aurreratze aldera, **elektrizitatea** jartzeko erabakia behin eta berriro atzeratu dugunak. Ander Irizar

Erasmuskraal basogintzarako utzitako sailetan dagoen herrixka bat da, **elektrizitaterik** eta telefonorik gabea. Oskar Arana

Elektrizitatezko lanpek, ilargi distiratsu zurbilen gisan. Josu Zabaleta

Elektrizitatearen indarrez argitzen da sakonean Hades. Xabier Olarra

Tailerrak: film laburrak, serigrafia, graffitiak, **elektrizitatea** eta eskulanak. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoekin)

Elektrizitate estatikoz gainezka daude etxeak. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **elektriko**.

Lau **elektrizitate** teknikari frantziar bahitu zituzten atzo gauean Gaza hegoaldeko Khan Junis hirian. Berria - Mundua

Ilargiak dena argitzen zuen, etxeak eta zuhaitzak, zurtoinak eta **elektrizitate** hariak, mundu osoa. Koro Navarro

Lau lehergailuk eztanda egin zuten atzo goizean Irungo (Gipuzkoa) **elektrizitate** dorre batean. Berria - Mundua

Etxeko sotoan egon zitekeen **elektrizitate** sorgailuren bat martxan jarri zela. Aitor Arana

Del Vallek Heydrichi bostekoa eman zion, **elektrizitate** zartada bat espero duenaren kemenaz. Alberto Ladron Arana

Elektrizitate konpainia nazionalak. Koro Navarro

Animalien zelula guztietan, **elektrizitate**-karga negatibo txiki bat dauka mintzaren barrualdeak. Irene Aldasoro

3.000 volt.-ko **elektrizitate** deskarga jaso zuen. Berria - Ekonomia

Aitonak iturgintza eta **elektrizitate** arazo zailetan sartzen zituen atzaparrak. Jesus Mari Mendizabal

Magnetismoa, **elektrizitate** indarra, imana? Josu Zabaleta

Goraldi horretan herria handitu egin zen, kaleak garbitu, espaloiak jarri, **elektrizitate**-indarra instalatu. Josu Zabaleta

Elektrizitate eta gas merkatuen liberalizazioa. Berria - Ekonomia

Enpresa 676 milioi euroko negozio zifra izatera heldu da, bezero kopurua eta **elektrizitate** salmentak igotzeagatik. Berria - Ekonomia

Elektrizitate merkaturatzaileen artean, berriz, bigarren postuan jartzea lortu du. Berria - Ekonomia

Elektrizitate bidezko seinalearekin. Josu Zabaleta

Lantegirat beheiti igortzen gituzte eta manatzen material guzia xehatzea, lantzen ziren airekoen hegalak eta **elektrizitate** muntaketa guziak. besterik ez bazen, **elektrizitate** posteei tiratzera. Michel Oronoz

Ur anitz baliatu behar da eta **elektrizitate** xahutze handia ere badago. Berria - Euskal Herria

Argi kontsumoa arras gutxitzea, eta agian **elektrizitate** hornidura moztea. Josu Zabaleta

Sartzen zituen, esate baterako, pasatutako loteria-txartelak, zapata-dendetako ordainagiriak, **elektrizitate**-erreziboak. Unai Elorriaga

Orduan ere **elektrizitate** sailekook ibili gintuan sendoen. Iban Zaldua

Argi, **elektrizitate**, iturgintza, klimatizazio eta suteen kontrako instalazioak ere berrituko dituzte, eta kaltetuta dauden gainerako gune guztiak ere eraberrituko dira. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elektrizitate deskarga (3); **elektrizitate eta** (3); **elektrizitate indarra** (4); **elektrizitate kableen gainera** (3); **elektrizitatea eta** (11); **elektrizitatea lortzeko** (3); **elektrizitatea sortzeko** (6); **elektrizitatea sortzen** (5); **elektrizitatea sortzen du** (3); **elektrizitatearen eta** (3); **eta elektrizitate** (8); **eta elektrizitatea** (11); **eta elektrizitatea sortzen** (3)

---

elektro **1** *iz* elektrokardiograma.

-Elektro bat egin beharko dugu. Koldo Izagirre

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, 'elektriko' esanahiaz)

Almodovar&McNamara edo Tino Casal zena bistaz galdu gabe, aspaldiko telebistako **elektro**-iratxo haien bertsio berria izan daitezke. Berria - Kultura

Zaila gerta daiteke diskoa, oinarri duen Guero hura baino askoz gehiago, putzu esperimentaletan sartzen baita une askotan, **elektro** giro ilunetan arakatuz edo dub musikaren urpeko soinuetan blai. Berria - Kultura

High Tone nahiz Bikini Machine **elektro** sailekoak ere joatekoak dira EHZ ekitaldira. Berria - Harian

Elektro-pop sailean kokatzen den obra, poesia eta soinuak naturalki uztartuz. Herria

Maiatzaren 27an aratseko 8ak eta erdietan, David Holmesperkusio eta klarineta joilea eta ere Joseba Irazoquigitara **elektro** soinu joilea hor izanen ditugu gau goxo baten iragaitea gatik. **Elektro** jazz, swing, jazz manouch eta beste aldizkatuko dira taula gainean. Herria

3 ***elektro-shock*** ik **elektroshock**.

4 ***elektro akuztiko*** ik **elektroakustiko**.

---

elektroakustika *iz* alderdi elektrikoak osagai garrantzitsua duen musika.

Garcia de la Torrek, jardunaldietako zuzendari artistikoak, **elektroakustikak** beste arte adierazpideetara egin duen jauzia nabarmendu du **elektroakustikaren** munduan egin den aldaketen artean. Berria - Kultura

Eugenio Tobalinren gitarrak **elektroakustikarekin** nahastuta sortuko du egileek nahi duten dimentsio berria. Berria - Kultura

Umetan erakarri zuen **elektroakustikak**, egun soinua musikalki manipulatzen du Daniel Kientzy saxofonista handiarekin. Berria - Kultura

Gitarraren musika zuzenean manipulatuko dut **elektroakustikaren** bitartez, eta soinu horrek forma geometrikoak ditu niretzat. Berria - Kultura

Gasteizko **Elektroakustikako** Jardunaldiak hasiko dira bihar, musika esparru berrietara zabalduz. Berria - Kultura

Xalbador Rallok zuzenduta, Aldaren Buruntza abesbatza eta **elektroakustikarako** obra estreinatu zuten oholtza gainean batu ziren Easo abesbatzako 29 kantariek. Berria - Kultura

Julio Sanz Vazquez (Cuenca, 1965) oso musikari ezaguna da **elektroakustikaren** arloan. Berria - Kultura

---

elektroakustiko *(orobat **elektro akustiko** g.er. eta **elektro akuztiko** g.er.) izond* elektroakustikarena, elektroakustikari dagokiona.

Informatika eta elektronika musika sortzaile moduan erabili eta orkestra bateko instrumentuekin uztartuta sortzen da musika **elektroakustikoa**. Berria - Kultura

Jaialdi **elektroakustikoak** ere badaude, duela hogeita hamar urtetik gora antolatzen dira. Berria - Kultura

Bihar Andoaingo Buruntza harrobian Gorka Aldaren obra **elektroakustikoak** eskainiko dituzte. Berria - Kultura

Kontzertu honen bidez, ikus-entzunezkoari aplikatutako konposizio **elektroakustikoa** nolakoa den erakutsi nahi dute. Berria - Kultura

Pop **elektroakustikoa** egiten dute, art pop-aren bidetik. Berria - Kultura

Jesus Guridi talde **elektroakustikoa** ariko da gaur Gasteizen.Ameriketako bideosormen **elektroakustikoa** ezagutzeko aukera Artiumen egongo da, hilaren 15ean. Berria - Kultura

Aurelien Rotureauk soinu **elektroakustikoekin** jantzi ditu *Amodio vol.* Berria - Kultura

Jardunaldi **elektroakustikoetan** Alemaniako, Ipar Irlandako, Kanadako, Quebeceko, Kataluniako, Frantziako, Herbehereetako, Espainiako eta Okzitaniako elektroakustika taldeak aritu dira. Berria - Kultura

David Alarcon eta Manuel Macias artistek beren bideo bidezko sorkuntza **elektroakustikoa** erakutsiko dute, lehen aldiz. Berria - Kultura

Musika **elektroakustikoko** laborategia. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
musika elektroakustikoa (7), musika elektroakustikoaren (4); **musika elektroakustikoko** (8)

---

elektrodenda *iz* tresna elektronikoak eta kidekoak saltzen diren denda.

Elektrodendara abiatu nintzen. Iban Zaldua

---

elektrodinamika *iz* fisikaren atala, korronte elektrikoen dinamika aztertzen duena.

Galileok Hitzaldiak idatzi ditu, unibertsoari buruzko ezagutza formulatzeko; Newtonek *Hastapenak;* Einsteinek *Mugimenduan diren gorputzen* ***elektrodinamikari*** *buruz.* Felipe Juaristi

Albert Einsteinek 1905ean argitaratutako *Higidura duten gorputzen* ***elektrodinamikari*** *buruz* artikuluari esker egin ahal izan zuten. Berria - Harian

Besterik ez baitzuen egiten, nahiz eta, berez, bera matematikaria izan, alegia, **Elektrodinamikako** irakaslea. Joxe Austin Arrieta

---

elektrodo 1 *iz* zirkuitu elektriko baten muturra, ingurumen batetik korrontea hartzen edo hari ematen diona.

Halako oroitzapenak operazio-gelan ere sorraraz daitezke, baldin eta operatzean **elektrodo** bidez estimulatzen bada lobulu tenporaletako alde ukitua. Xabier Olarra

Johnnyk eskuin hatzak zabaldu zituen, **elektrodo** baten kablea, justu gainetik zihoakiona, ukituz. Pako Aristi

Tumorean **elektrodo** bat sartzean datza, berez, teknika hori. Berria - Gaiak

Arnasak eragozpenik gabe puztu zuen bere bularra, **elektrodoen** kableak mugiaraziz. Pako Aristi

Zamarra irekia zeukan, eta bularrean hiru partxe, hiru **elektrodo** jarriak zizkioten, kable luzeekin. Pako Aristi

Anestesia lokala jarrita, eta X izpien kontrolez, platinozko ehun **elektrodo** eta plastikozko dozena erdi bat hodi sartuak zizkioten gizonari garunean arretaz aukeratutako gune batzuetan. Irene Aldasoro

Elektroentzefalograma egiteko jartzen diren **elektrodoek** betetzen dute mikrofonoen funtzioa. Berria - Gaiak

Elektrodoen monitoreak arrasto luze bat margotu zuen, gehiago ezerk erdibituko ez zuen zuzenune bat bezalakoa. Pako Aristi

Elektrodo estimulatzailearen kokapenarekin loturik dago puntuaren ustezko posizioa. Irene Aldasoro

2 (hitz elkartuetan)

Elektrodo-orratz bat garunean sartu eta korronte elektriko txiki bat emanez gero, korronte horrek ikusirudiak sorraraziko ditu eremu batean. Irene Aldasoro

Hala ere, miaketa-**elektrodoen** puntak ukitzen duen ehuna deseginagatik, ez da galtzen gertaeren oroitzapena. Irene Aldasoro

3 (tortura tresna gisa)

Jo eta titi-buruetan **elektrodoak** ipini zizkidaten; ondoren, bortxatu ninduten eta erredurak egin zizkidaten baginan. Manta gaineko jipoiek, **elektrodoek**, bainerak edo plastikozko boltsek militantziaren alderdi beldurgarri baina aldi berean heroikoaren imajineria osatzen zuten. Berria - Mundua

Plastikozko poltsen, burua urpean sartzearen, **elektrodoen**, zutik iraunaraztearen eta heriotza zein senideak bortxatzeko mehatxuen bidez torturatu zituztela jakinarazi zuten. Berria - Mundua

Sendagile eta erizainik inguruan ez zegoen orduetan **elektrodoak** ezartzen zizkioten zangoko zaurietan, zangoa bihurritzen zioten, hezur hautsiak bizian agerian zituela. Jokin Urain

Eta alboko gelan, Paulo ikusi zuen, zoratu beharrean, barrabiletan ezarriak zizkioten **elektrodoak** jasan ezinda. Pedro Alberdi

Ikusiko duk, **elektrodoak** hor jarriz gero, puska baterako joango zaizkik larrutarako gogoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Bakea behar nian, handik irten behar nian, **elektrodorik** gabe, bainera gabe! Unai Iturriaga

Erredurak zeuzkan larruazal osoan, zigarrokinen erredurak, eta saihetsen bueltan **elektrodoenak**. Unai Iturriaga

Amaren berbaldia betiko gaien ingurukoa izan zen: eguraldia, bizilagunak, haragiaren prezioa, telefono-gidak, kurrikak, zigarrokinak, **elektrodoak**. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
elektrodoak jarri (6); **elektrodoak jarri zizkiotela** (5); **eta elektrodoak** (4)

---

elektrodomestiko *iz* etxeko lanetan erabiltzen den tresna elektrikoa

Plantxazarrak, errejak, tuberiak, bizikleten eskeletoak, **elektrodomestikoen** karkasak, kaja registradorak. Pablo Sastre

---

elektroentzefalograma *iz* entzefaloaren ariketak sortzen dituen korronte elektrikoen grafikoa. ik**entzefalograma**.

Are **elektroentzefalograma**, denbora gehienean hain baxu eta koherentziagabea, bare eta erritmiko bihurtzen zitzaion musikarekin. Xabier Olarra

Astean behin, estimulu elektrikoak aplikatzen zizkioten berrogeita hamar orratzeko entxufeetatik, eta, **elektroentzefalograma** baten bidez (garunaren berezko jarduera elektrikoa detektatzeko gai den erregistragailu sentikor bat da **elektroentzefalograma**), haren garuneko beste puntu batzuetako erantzunak neurtzen zituzten. Irene Aldasoro

---

elektroerosio *iz* metalezko piezak deskarga elektrikoen bidez lantzeko prozedura. ik**elektrohigadura**.

Elgoibarko zentroan **elektroerosioko** makina berri baten prototipoa eta elektrifikatzaile eredu berri bat osatuko dituzte. Berria - Ekonomia

---

elektroforesi *iz* soluzio koloidal bateko zatikiak elektrodoetara higitzea eremu elektriko baten eraginpean.

Agirregabiria **elektroforesia** eremu elektrikoaren eraginez soluzio edo emultsio bateko partikulak higitzea egiteko txip bat garatzen ari da Arrasateko enpresan. Berria - Gaiak

elektrogailu *(ETCn **33** agerraldi; orobat **elektragailu** ETCn **8** agerraldi) iz* elektrotresna.

Papera, kristala, olioa, **elektrogailuak** ... material horiek bereiztuta tratatzen dira, bakoitza bere plantan. Berria - Euskal Herria

Argiak eta irratia bat-batean piztu ziren, eta berriro, sukaldetik **elektragailu** berpiztu berrien jeneradoreak txistuka hasi ziren. Harkaitz Cano

Elektrogailuen hizkera ere ulertzen duela iruditzen zaio bati azkenean. Harkaitz Cano

Aire konprimatua eta metanol/etanol nahastean oinarritutako sistemak, esaterako, erabiltzen dira etxeko **elektrogailu** txikietan eta erregai-pila txikietan. Berria - Gaiak

---

elektrogeno *izond* elektrizitatea sortzen duena.

Erietxean atzo goizaldeko 01: 10ean berreskuratu zuten argindarra, eta bitartean multzo **elektrogenoen** bitartez lan egin zuten. Berria - Euskal Herria

Argi barik zeuden etxeetara multzo **elektrogenoak** eraman zituzten. Berria - Harian

Azken hutsa ekipo **elektrogenoarena** izan omen da. Patxi Iturritegi

---

elektrohidrauliko *izond* galga hidraulikoez mintzatuz, elekrtrikoki erregulatzen dena.

2002az geroztik auto horiek erabiltzen dituzten galga **elektrohidraulikoek** akats asko izan dituzte. Berria - Ekonomia

---

elektrohigadura *iz* elektrizitatearen eraginaren ondoriozko higadura. ik **elektroerosio**.

Munduko **elektrohigadurarako** makinen euskal fabrikatzailerik zaharrena. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elektrohigadurarako makinen euskal** (3); **munduko elektrohigadurarako makinen** (3)

---

elektroi **1** *iz* atomo zatiki oinarrizkoetako bat, elektrizitate negatiboz zamatua.

Elektroiak materiaren zatia dira, eta materia unibertsoarena. Berria - Gaiak

Joseph John Thomsonek **elektroia** aurkitu zuen Cambridgeko Cavendish Laborategian 1897an. Pello Salaburu

Metal bat argiarekin zein X edo gamma izpiekin jotzen bada, **elektroiak** askatzen dira. Berria - Harian

Objektu baten kolorea **elektroien** presentziarekin loturik dago; **elektroiek** oso erraz xurgatzen dute iristen den argi-izpiaren energia, eta, hartara, energia maila handiagoak lortzen dituzte. Irene Aldasoro

Usaimen-pigmentuaren molekula bateko **elektroi** batek jauzi egin dezakeela [...] bibrazio-maiztasun egokia duen beste molekula bat inguruan bada. Irene Aldasoro

Elektroiek partikula gisa joka zezaketen, edo uhin moduan. Fernando Morillo

Elektroi bat aldi berean uhin eta partikula izan daitekeela, hemen eta han egokitu daitekeela une berean. Juan Garzia

Horien arabera, **elektroiak** eta beste partikulak ere, argia bezala, uhinak dira. Berria - Harian

Eta, gertatu ez balitz gehixeago izatea **elektroiak** antielektroiak baino eta quarkak antiquarkak baino, partikula arruntak, materiaren oinarri-oinarrian daudenak, absente leudeke gaur egun unibertsotik. Juan Garzia

Eskuliburuetan eta ordenadoreetako pantalletan dena ikusten baita: **elektroiak**, quark-ak; direnak eta ez direnak. Iñaki Segurola

2 (izenondoekin)

Elektroi aske moduan. Berria - Kirola

Gatz hori, bada, erreduzitzaile gogorra da, erran nahi baita irrikan dagoela bere **elektroi** jakin bi jaregiteko. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Ohiko korronte mota bidaltzea (**elektroi** fluxu bat) nerbio-zuntzean zehar. Irene Aldasoro

Sabethek ez daki zer den beirazko kotoia... eta orduan hedatzen dira lehen errainuak itsas azalaren gainetik: gari-sorta irudi, azkonak irudi, ontzi lehertu baten ezpalak irudi, ekisaindua irudi, **elektroi**-bonbardaketen argazkiak irudi. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **edo elektroi** (3)

---

elektroiman *iz* eremu magnetikoa korronte elektrikoaren bitartez eratzen duen imana.

Biluzik ibili ziren hasieran, baina gero, **elektroimanak** erabili zituzten aparatuaren eragina indargabetzeko. Rafa Egiguren

---

elektrokardiograma **1** *iz* muskulu kardiakoaren ariketak sortzen dituen korronte elektrikoen grafikoa.

Kardiologoak hainbat proba egiteko eskatu zuen, tartean **elektrokardiograma** bat. Berria - Euskal Herria

Oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzten medikuek **elektrokardiograma** egiten diete gaixoei, eta gero guri bidaltzen dizkigute, teknologia berrien bidez. Berria - Harian

- **Elektrokardiograma** bat egin beharko dugula, zure... zure kutxa torazikoak dituen akats txiki horiek nondik datozen. Koldo Izagirre

Amaren **elektrokardiograma** eta umekiarena bereizteko. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Giltzaren perfil irregularra asteko egun bakoitzeko nire umorearen **elektrokardiograma** izan daiteke. Harkaitz Cano

---

elektrokimika *iz* kimikaren atala, elektrizitateak eragiten dituen gertakari kimikoak eta zenbait gertakari kimikok eragiten duen elektrizitatea aztertzen dituena.

Partikulen fisika, indar nuklearrak eta **elektrokimika**. Fernando Morillo

-Londresen jaioa eta fisikan doktorea -gaineratu zuen mutilak-, **elektrokimikaren** inguruko tesi batekin. Fernando Morillo

---

elektrokimikari *iz* elektrokimikan aditua.

Fusio hotza lortu zuten haiek, Fleischman eta Pons, ez al ziren **elektrokimikariak**? Fernando Morillo

elektrokimiko *izond* elektrokimikarena, elektrokimikari dagokiona.

Energia kimikoa energia elektriko bihurtzen duten gailu **elektrokimikoak** direla esango genuke. Berria - Gaiak

Energia iturri berriztagarrien bidez uraren hidrogenoa oxigenotik bereizten da, prozesu **elektrokimiko** erraz baten bidez. Berria - Harian

Cidetec zentroak teknologia **elektrokimikoak** lantzen ditu eta MCC eta Cegasak mintz polimerikoko erregai pilen teknologiari buruz aritzeko interesa dutela adierazi dute. Berria - Ekonomia

---

elektrokonbultsibo *izond* elektrizitate bidezko konbultsioei dagokiena.

Urduriei eta gogaikarriei terapia **elektrokonbultsiboa** ematen diegu eta. Joseba Sarrionandia

---

elektrokutatu, elektrokuta, elektrokutatzen da/du *ad* deskarga elektriko baten bitartez hil.

EDFren transformadore baten kanpoko sare gainetik pasa ziren, eta hauetako bi, 14 eta 16 urtekoak, **elektrokutatuta** hil ziren. Iñigo Aranbarri

Hamabost urteko gaztea **elektrokutatu** eta dorretik erori zen, eta egoera oso larrian dago. Berria - Euskal Herria

Korronte alternoaren eragin txikitzaile demasak frogatzeko, dozenaka animalia -katuak eta zakurrak bereziki, baina baita elefante bat ere, tartean- **elektrokutatu** zituen sistema honen bidez. Harkaitz Cano

Zezen elektriko batek mila voltioko adarkada batez **elektrokutatu** zuen amorantea ohean. Joan Mari Irigoien

Nire ustea da arbel elektronikoaren bidez **elektrokutatu** zutela, hiltzaile gaizto bat bezala exekutatu zutela. Hotzikara batek **elektrokutatu** zuen Mikel, eta koldarrek baizik egiten ez dakiten barrea ilki zitzaion eztarrira. Karlos Linazasoro

Borrokak piztu ziren unean argindarraren sareko kable bat erori eta gizon bat hil zen **elektrokutatuta**. Berria - Mundua

Langile bat hil da Behaskanen, errepide berrian ari zela **elektrokutaturik**. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elektrokutatu eta** (3); **elektrokutatuta hil** (3)

---

elektrokuzio **1** *iz* elektrokutatzea.

Elektrokuzioa, urka, fusilatzea eta gas ganbera baztertu ondoren, injekzio hilgarriaz ezartzen dute heriotza zigorra. Berria - Mundua

Antzeko sistema erabil liteke, Templek esan zidanez, txerriak hiltzeko ere, nahiz **elektrokuzioa** den halakoak akabatzeko ohiko sistema, eta ez iltze-ukaldia. Xabier Olarra

Berunen desbideraketa txiki batek hil egingo luke pazientea, **elektrokuzioz**, txerri bat bezala. Xabier Olarra

Urkatzaile AB-k **elektrokuzio** bidezko exekuzioari buruz zutabe mordoxka bat idatzi zuen (neologismoa gaitzesten zuen, bestalde, hitza egintza baino okerragoa zela esanez). Xabier Olarra

Horra zer egingo genuen: uraren **elektrolisia**. Juan Garzia

2 irud/hed

Michel Houellebecqen *Plateforme* **elektrokuzioa** izan zen niretzat, eta orain *La possibilité d'un île* irakurri eta asko gustatu zait, *Plateforme*-ren neurrira ez dela iristen iruditzen bazait ere. Berria - Kultura

---

elektrolisi *iz* korronte elektriko jarraitu baten bidez disoluzio bat deskonposatzea.

Horra zer egingo genuen: uraren **elektrolisia**. Juan Garzia

Batzuetan hidrogenoa uraren **elektrolisiaren** bidez lortzen da. Berria - Gaiak

Elektrolisia bezain sinplea. Fernando Morillo

---

elektrolitiko *iz* elektrolisiarena, elektrolisiari dagokiona.

Atomoen desintegratze **elektrolitikoaren** bidez, oraindik ondo ezagutzen ez diren ioi eta elektroi horiek azaltzen dira. Josu Zabaleta

Euren oinarria erreakzio **elektrolitikoaren** alderantzizkoa da: hau da, oxigenoa eta hidrogenoa elkarrekin konbinatuz, ura ematen dute eta honekin batera energia elektrikoa eta beroa sortzen da. Berria - Gaiak

---

elektromagnetiko *izond* elektromagnetismoarena, elektromagnetismoari dagokiona.

Argindar **elektromagnetikoa** ez da jarraikian gertatzen den zerbait, baizik berak "quanta" bataiatu zituen mikropartikulek eragiten dutenaren emaitza. Pello Salaburu

Gaur bertan entzun dut ETB1an ordenadore eta telebistaren uhin **elektromagnetiko** kaltegarriak desegiten dituen kaktus bat badela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nanomilimetrora kalkulatutako indar **elektromagnetikoek** atzera bidali zuten, 1969 ko uztailaren 10 eko egunsentira, kostaldeko errepidea erabat hutsik zegoen une batera. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eremu elektromagnetikoek** (4); **eremu elektromagnetikoen** (3); **uhin elektromagnetikoak** (5)

---

elektromagnetismo *iz* fisikaren atala, korronte elektrikoen eta eremu magnetikoen arteko erlazioa aztertzen duena.

Gorputzen mugimendua eta **elektromagnetismoa** aztertu zituen hutsean, grabitate indarraren eraginetik libre. Berria - Harian

Beste aldetik begiratuz, Z ekuazioa da, indar nuklearrak ematen dizkigu, **elektromagnetismoa** eta grabitatea. Berria - Gaiak

---

elektromenaiu *iz* etxeko elektrogailuen multzoa.

Ainitz gauza erabiliko bide du treina horrek, **elektromenaiu**, oihaleria, burdinki eta beste, 9.814 luzeko bide hortan, Errusia, Bielorusia eta Polonia trebesaturik. Herria

Su haundi batek, Fagor enpresaren pabillun batean loturik, kalte haundiak egin ditu, pabilluna bera erre duelarik eta barneko **elektromenaiuko** tresna asko ere fundituz. Herria

---

elektromiograma *iz* muskulu uzkurtzeak eragiten duen korronte elektrikoaren edo muskulu batek estimulu elektrikoarekiko duen erantzunaren grafikoa.

Guardia zibilen defentsak aurkeztutako medikuak, berriz, epailearen aurrean onartu zuen badaudela inolako seinale edo erredurarik eragiten ez duten deskarga txikiak ematen dituzten elektrodoak ere: **elektromiogramak**, hain zuzen ere. Berria - Euskal Herria

---

elektronika **1** *iz* fisikaren atala, elektroi askeek esku hartuz gertatzen diren fenomenoak aztertzen dituena atala; zientzia horren ondoriozko teknologia.

Zahar airea daukate, **elektronikaren** aurreko garai batera eramaten zaituzte. Pako Aristi

Teoria kuantikoari esker etorri ziren **elektronika** eta ondorengoak. Berria - Harian

-Horretarako, **elektronika** ikasi beharra zagok, seme; ingeniaritza elektronikoa egitea onena. Juan Kruz Igerabide

Mekanikari **elektronika** gailendua zitzaiola gogorarazi nahi izan zioten hatz urduriek, ondoko teklatuetan. Jon Muñoz

Lehergailuak egiteko beharrezkoak diren osagaiak ekoiztea leporatzen diote, **elektronikan** ikasia delakoan. Berria - Euskal Herria

Sarritan egokitu ohi naiz ataka horretan, eta idazteko konputagailua erabiltzen hasi nintzenetik gehiago, testuak ebaki, kopiatu eta horrelako eginkizunetan ari naizela, **elektronikara** berandu iritsia bainaiz. Ramon Saizarbitoria

Elektronikaz osatu hainbat zirkuito inpreso ttiki, eta dijitalizaturiko hainbat gune ordenadoretako eta beste. Pello Zabala

Elektronikaren bidea zabaldu zion arteari. Berria - Kultura

Elektronikak ukitutako musika estiloen artean gutxi gelditu dira tangoa bezain ondo jantzita. Berria - Kultura

Pop, rock, jazz eta ia musika estilo guztiak hurbildu dira **elektronikara**. Berria - Kultura

Era berean, batzuetan **elektronikara** hurbiltzen da, eta besteetan flamenkora». Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gai izango bagina bit bakoitza atomo batean sartzeko, eta hau berandu baino lehenago egingo da, **elektronika** moderno osoa erroz aldatuko litzateke. Pello Salaburu

"Ipar-Ipar" merkataritzan, trukeen erdia baino gehiago antzeko produktuen truke gurutzatuek osatzen dute (automobila edo kontsumoko **elektronika** adibidez). Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Elektronika sektoreko zenbait enpresekin. Iñaki Heras

Sony **elektronika** konpainia japoniarra buru duen inbertsiogile talde batek erosiko ditu azkenean Metro-Goldwyn-Mayer. Berria - Ekonomia

Gutxienez 45 pertsona hil eta 150 inguru zauritu ziren atzo Meerut hiriko **elektronika** feria batean piztutako sutearen eraginez. Iñigo Aranbarri

500 kilo lehergailu, **elektronika** tresneria asko eta beste muntadura frango. Herria

Beraren lagun bat Bianchi lantegian aritzen zen, **elektronika** lanetan, eta lanetik kanpo telebistak muntatzen zituen, gero prezio onean saltzeko. Juan Kruz Igerabide

Aitak askotan hitz egiten zuen bere lagunaz, garai hartan inork gutxik zekien-eta **elektronika** kontuez. Juan Kruz Igerabide

Goizean, Benjamin Davila Larrain Lizeoan **elektronika** gela berri batzuk inauguratu zituen. Berria - Euskal Herria

Birdy eta Templar **elektronika** alorreko musikarien laguntzarekin osatu du Txuma Murugarrenek bere laugarren diskoa. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
elektronika eta (5); **elektronikaren eta** (3); **eta elektronika** (11); **eta elektronikak** (3)

---

elektronikari *iz* elektronikan adituan den pertsona.

Hori zen Laurent Barbot **elektronikari** bat, 250 langileko ekipa batean ari zena eta, iduriz, itsura tiratu diotena bere multzorat. Herria

---

elektroniko **1** *izond* elektronikarena, elektronikari dagokiona; elektronikaren bidezkoa.

Garuna, gorputzaren jarduera guztiak kontrolatu eta zaintzen dituen organoa, gizakiak egindako edozein sistema **elektronikorenak** baino ahalmen handiagoak dituen konputagailua da. Irene Aldasoro

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide **elektronikoz**, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratara. Koro Navarro

Boto **elektronikoa** emateko makinekin arazo teknikoak daude AEBetan. Berria - Gaiak

Txartel **elektronikoekin** ere, izan ziren gorabeherak. Berria - Euskal Herria

Filmeko irudia kolpe batetik grabatzen da; bideo-irudia, berriz, elkarren gainean dauden lerro horizontalak bata bestearen ondoren aztertzen dituen eskaneatze **elektroniko** batez erregistratzen da. Josu Zabaleta

Haize errotentzat osagai **elektronikoak** egiten ditu. Berria - Ekonomia

Ez zen askorik harritu autoko erloju **elektronikoak** asteartea zela ohartarazi zuenean. Iban Zaldua

1931n asmatu zuten mikroskopio **elektronikoa**. Pello Salaburu

Garuna baino hobea da konputagailu **elektronikoa** kalkulu aritmetiko bizkorrak egiteko, baina ez da iristen (ez eta iritsiko ere, urte askoren epean) garunak informazioa bilatzen erakutsi duen bizkortasun mailara. Irene Aldasoro

Errazagoa da garun **elektroniko** bat asmatu, sortu, eraiki eta manipulatzea gure garunaren barruan zoriontsu izateko modu sinplea aurkitzea baino. Jon Alonso

Bihotz-taupaden markagailua da piezarik erabiliena: gailu **elektroniko** sinple bat, dagoeneko milaka eta milaka pertsona heriotzatik edo betiko elbarri geratzetik salbatu dituena. Irene Aldasoro

Teknika **elektroniko** sentikorrak erabiliz jaso daitezke nerbio-zuntzetan doazen seinaleak. Irene Aldasoro

Ezin diegu esan sare **elektronikoa** haurrentzako segurua denik. Berria - Gaiak

Hauek bien artean aldizkari **elektroniko** bat ateratzen dute interneten, *Comunica net* izenekoa. Pako Aristi

Eskuko agenda **elektronikoa** atera zuen motxilatik. Fernando Morillo

Gizarteek hainbat diru mota izan dituzte historian zehar, bai gatza, kakaoa edo urrea, bai gaur egungo diru papera, plastikozko dirua (kreditu eta debitu txartelak) bai diru **elektronikoa**, hots, berezko baliorik ez duten elementuak. Iñaki Heras

Helbide **elektronikoa**: depradachristophe@yahoo.fr. Herria

Ordenagailua piztuta, gutun **elektroniko** bat idaztea deliberatu nuen. Hasier Etxeberria

Bertan 2004. urteko maiatzaren 19ko data duen korreo **elektroniko** bat jasotzen da: agintariak sinatutako aginduaren berri ematen du korreoak. Berria - Mundua

Bezeroen mezu **elektronikoak** hartzeko. Antton Olano

-Badaukat zure posta **elektronikoa**. Fernando Morillo

Posta **elektronikotik** bidaliko nioke. Antton Olano

Bidaia Interneten hasi dute; *Linterna Gorria* aldizkari **elektronikoa** sortu dute. Berria - Kultura

Informatika, dokumentu **elektronikoen** kudeaketa, Internet guneen sormena eta abar. Herria

Ameriketako Estatu Batuek sortzen duten zabor **elektronikoaren** erdia inguru (ordenagailuak, telebistak, inpresorak, telefonoak, eta abar) Asiako herrialdeetara esportatzen

dituzte. Iñaki Heras

Ingeniari **elektronikoak** ikusten du zelula hartzaile asko dauzkala sudurrak; eta zelula hartzaileetan hasten da usaimen prozesua. Irene Aldasoro

Abesti batzuen janzkera **elektronikoa** beste batzuena baino handiagoa da. Berria - Kultura

Folk **elektronikoaren** barruan ere kokatu dituzte diskoak biltzen dituen hamar abestietako gehienak. Berria - Kultura

Suicide taldearekin, punk **elektronikoaren** hazia erein zuen. Berria - Kultura

Artista **elektronikoek** «soinu hacker lana» egingo dutela gaineratu zuen. Berria - Kultura

2 (elkarketa kopulatiboetan)

Euskarri **elektroniko** -informatikoek emango omen diote azkena. Joxerra Garzia

Lehenengo, [autoaren] sistema elektriko- **elektroniko** guztia aztertu behar da; Federico Garcia Lorcaren lanen edizio kritiko- **elektronikoa** egiten ari dira elkarlanean, Boloniako Unibertsitateko ikerlari talde bat eta Garcia Lorca Fundazioa. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkari elektroniko (3); **elektroniko bat** (21); **elektroniko bat jaso** (3); **elektroniko batean** (3); **elektroniko batek** (3); **elektroniko baten** (4); **elektroniko batzuk** (3); **elektroniko bidez** (4); **elektroniko eta** (5); **elektroniko jotzaile** (3); **helbide elektroniko** (5); **helbide elektroniko bat** (5); **ingeniari elektroniko** (3); **ingeniari elektroniko batek** (3); **mezu elektroniko** (19); **mezu elektroniko bat** (6); **musika elektroniko** (3); **orrialde elektroniko** (3); **posta elektroniko** (8); **posta elektroniko bidez** (4); **tresna elektroniko** (3)

agenda elektronikoa (3); **boto elektronikoa** (7); **edizio elektronikoa** (4); **elektronikoa erabili** (4); **elektronikoa erabiliko** (3); **elektronikoa eta** (8); **elektronikoa ez** (4); **elektronikoa izango** (3); **elektronikoa sortu** (3); **eta elektronikoa** (3); **eta musika elektronikoa** (3); **helbide elektronikoa** (10); **ingeniaritza elektronikoa** (4); **musika elektronikoa** (12); **musika elektronikoa eta** (6); **posta elektronikoa** (34); **sare elektronikoa** (8); **sistema elektronikoa** (6); **soinu elektronikoa** (3)

aldizkari elektronikoak (3); **elektronikoak egiten** (3); **elektronikoak erabiltzen** (4); **elektronikoak eta** (6); **elektronikoak ez** (4); **elementu elektronikoak** (3); **eta elektronikoak** (3); **mezu elektronikoak** (9); **osagai elektronikoak** (5); **posta elektronikoak** (6); **sare elektronikoak** (4); **sistema elektronikoak** (5); **tresna elektronikoak** (3)

edizio elektronikoaren (3); **egunkari elektronikoaren** (3); **elektronikoaren bidez** (19); **elektronikoaren bitartez** (6); **elektronikoaren eta** (3); **elektronikoen bidez** (5); **elektronikoen bitartez** (3); **helbide elektronikoan** (3); **helbide elektronikora** (3); **mezu elektronikoen** (3); **musika elektronikoarekin** (5); **musika elektronikoaren** (8); **orrialde elektronikoan** (3); **posta elektronikoan** (6); **posta elektronikoaren** (11); **posta elektronikoaren bidez** (5); **posta elektronikoko** (5); **posta elektronikoz** (14); **sare elektronikoan** (6); **sare elektronikoaren** (22); **sare elektronikoaren bidez** (11); **sistema elektronikoaren** (4)

---

elektronikoki *adlag* elektronikaren bidez.

Bigarren ate bat daukate ziegok barru aldetik, burdinazko hagaz egina, parrillaren antzeko bat, **elektronikoki** irekitzen dena modulo bakoitzak daukan bunker moduko batetik. Koldo Izagirre

Elektronikoki kontrolatutako nahasketa sartzen dute injektoreek zilindroetan; memento bakoitzean behar den erregai/aire proportzioan eta behar den presioan. Berria - Gaiak

Osagai gutxiko musika da, **elektronikoki** oso manipulatua. Berria - Kultura

Zuri-beltzeko irudiak eskaintzen ditu, **elektronikoki** kargatutako kapsula ñimiñoen bidez. Berria - Gaiak

---

elektrorretinograma *iz* erretinako zelulen erantzun elektrikoaren grafikoa argi estimuluen aurrean.

Elektrorretinogramak, argiz estimulatutakoan zer jarduera elektriko dagoen jasotzeko diseinatuak, erabat lauak ziren. Xabier Olarra

---

elektroshock *(orobat **elektrotxoke** g.er.) iz* tratamendu psikiatrikoa, garunaren zehar deskarga elektrikoak aplikatzean datzana.

Hainbat homosexuali eman dizkiete **elektroshockak**. Luis Elberdin

Hura benetan gaixorik da, hala burutik nola gorputzetik, eta medikuak **elektroshockak** ematearen komenigarritasuna aztertzen ari dira. Edorta Jimenez

Gizon hori **elektroshock** baten tankerakoa da, sermoilari eta fanatiko on bat bakarrik izan daitekeen bezala. Ramon Etxezarreta

Estatu Batuetako biologo batek eta Alemaniako arkitektura irakasle batek, baina, koralak haztea lortu dute, **elektroshock** bidez. Berria - Gaiak

Elektrotxoke tratamenduarena eta Lili Marlenen aparizioa; depresioaren aurkezpena airezko bula barnetik. Herria

---

elektrostatiko *iz* elektrizitate estatikoari dagokiona.

ADN zati horietariko bakoitzak kate polipeptidiko bat ekoizten du, eremu bati dagokiona: proteina-eredu bat, alegia, zeinaren hiru dimentsioko formaren eta karga **elektrostatikoaren** agindupean baitaude ezagutze- eta eragite-gaitasunak. Juan Garzia

ADN zati aukeran labur samarren mihiztaduraz osatuak baitira eta zati bakoitzak kodetzen baitu proteina-eredu bat, zeinaren karga **elektrostatikoak** determinatzen baititu beste molekulekiko ezagutze- eta eragite-gaitasunak. Juan Garzia

---

elektroterapia *iz* elektrizitatea erabiltzea eritasunen tratamenduan.

Elektroterapia hartzen ari da, ordea, eta datorren astean jokatu egingo du. Berria - Kirola

Guk gomendatzen dugu ez soilik ur sendagarrien erabilera: era berean, lokatz mesedegarriak, dieta edo **elektroterapia** bezalako sistemak baliatzen ditugu. Berria - Gaiak

Berasaluzek ere eskuko mina du, **elektroterapiarekin** osatzen ari da, baina oraindik ez daki ziur jokatuko duen ala ez. Berria - Kirola

---

elektrotresna *(ETCn **2.868** agerraldi; orobat **elektratresna** ETCn **31** agerraldi) iz* tresna elektrikoa.

1888. urtean, Buffaloko gobernadoreak Westinghouse **elektratresnen** enpresari enkargua egin zion aulki elektrikoa fabrika zezan.vBehekoan sukaldea egongo zen, leku eguteran eta **elektratresnarik** sofistikatuenekin ongi hornitua. Harkaitz Cano

Jakiz eta edariz oparo hornituak zeuden, baita aisiarako materialez ere: telebista, musika-kate, bideo, DVD, **elektratresna**... Karlos Linazasoro

---

elektrotxoke ik **elektroshock**.

---

elekzio *iz pl* hauteskundeak.

Ondoren, beste **elekzio** batzuk eginen dira. Joan Mari Irigoien

Jauregik esan zuen PSOE alternatiba gisa aurkezten dela **elekziotara** «PPren pentsamendu bakarrarekin leporaino gaudelako». Berria - Euskal Herria

---

elemendu ik **elementu**.

---

elemenia 1 *iz* oso kopuru handia.

Zer erran bada Frantzia guzian hil zuten jende **elemeniaz** ? Xipri Arbelbide

Jende **elemenia** serio-serio begiztatuko duzu, nor bere pote bete urarekin, kaka egitera irtenda. Gotzon Garate

Beste aldean kapirotedun **elemenia** zegoen bildurik, elkarren artean hizketan, binaka, taldetxoetan, biribiletan. Jon Alonso

Omiasainduk, beti bezala ikusi du Eliza, oste, saldo, **elemenia** kartsuki otoitzean defuntuak gogoan eta hil herria loretei bat iduri. Herria

Poliki-poliki, aukera izan zen organismo konplexuek dauzkaten ADN kantitate eskergak maneatzea, zenbait gene atzematea, haiek bakartzea, **elemenia** aleka ugalarazteko. Juan Garzia

Auto izpirik gurutzatzen ez nuela, bihurgunez bihurgune arraposki aitzinatzen nintzen, aldi berdinean urguilu kementsuz hanpatua eta naturako **elemenien** arras menpeko. Itxaro Borda

Elemenia ! Jon Muñoz

2 (dagokion hitzaren ezkerrean)

Bestek esanaren sintesi bat saiatzea ere eginbide zaila da: **elemenia** gauza esan eta idatzi da, eta askotariko, gehiegitarikoak apika. Juan Garzia

Merkatari aberatsen hatzen artean irazekitzeko metxak eta **elemenia** bandera beltz beren burezur zuri eta izterrezur gurutzatuekin. Juan Garzia

3 ***elemenia bat***

elemenia bat kupulua txiki eta dardartik eraikitzen zuten kupula erraldoi hori, gaztelutik, maldan behera, ibairaino jaisten zena. Jon Alonso

Bolatxo hori irudikatzea, hantxe espazioen zabaltasunean eskegia, jaio, hazi, ugaldu eta hilko ziren **elemenia bat** izakiz hornitua, aski kitzikagarri zaio Sortzaileari. Juan Garzia

Eguzkitan distiraz ari ziren gailur zuri, elkarren desberdin, zapaldu edo zorrotzezko **elemenia bat** zen, urrutian. Josu Zabaleta

Gu atzera-aurrera gabiltzan Lur hau, bere baitan ozeanoak, kontinenteak, mendiak dauzkan eta **elemenia bat** izaki biziren bizileku den Lur hau. Juan Garzia

Halako idazle "interesgarri" eta are "oso interesgarrien" **elemenia bat** edonoren eramana eta pairamena mila puska txikitan zartatzeko modukoa izan behar zen. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elemenia bat** (6)

---

elemeniaka *adlag* oso ugari.

Eta holaxet Aita Garat bere lagunekin herriz herri zabilan, arimak **elemeniaka** argituz eta zerukotzat irabaziz. Xipri Arbelbide

Eta jakiten zutena bai harek behar zuela predikatu, zoko guzietarik **elemeniaka** heldu zen jendea, erranez: [...]. Xipri Arbelbide

Gauzaki eta halakoak pileka; kimikoak, plastikozkoak, metalezkoak eta bestelakoak **elemeniaka** . Jose Angel Irigaray

Garbiketa lehorreko dendaren ondotik, jaki-dendaren, okindegiaren, apaindegiaren, kioskoaren eta kafetegiaren ondotik igarotzen ginelarik, **elemeniaka** hizkuntza ezberdin iristen zitzaizkion belarrietara oldarka. Oskar Arana

Galeria anitz zeuzkan orotarik erakusteko: gerrirainoko galtzerdiak eta titi-zorroak, ile-lehorgailuak eta tanpoiak, makillaje-potoak eta ezpain-margoen hoditxoak, panpinak eta sokasaltoka aritzeko sokak, gau-soinekoak eta ile-orratzak, kizkurgailuak eta aurpegirako kremak eta ezin konta ahala oinetako, **elemeniaka** . Oskar Arana

---

element ik **elementu**.

---

elemental 1 *izond* oinarrizkoa.

Izatea gorputz oinarrizko edo **elementaletan** datzala. Xabier Amuriza

Benetan hori baino gauza **elementalago** eta sinpleagorik esatea ez dakit ba ote zegoen. Joxe Azurmendi

Kontu **elementalak** dirudite. Iñigo Aranbarri

Ideia falta larria eta sentipen eta emozio **elementalak** baizik ez zituen herri basa. Xabier Olarra

Demokraziaren arau **elementalak** nola biolatzen dituen. Joxe Azurmendi

Ez dut beldur makalarekin ematen definizio labur eta **elemental** hau. Xabier Olarra

Ordurako atomoa mundu bilakatua zegoen bera bakarrik, eta "dagoen denak" partikula **elementalez** osatua egotera pasa behar izan zuen, errespetu ederrean. Iñaki Segurola

Zatiki **elementalek** parte hartzen duten gertaerak alde batera utzita [...] munduaren tasun fisikoak ez daude guk egiten diogun begiradaren mende. Josu Zabaleta

Forsterrek saiakera honetan dioen bezala, istorioa testuaren atalik **elementalena** eta primitiboena da. Bernardo Atxaga

Ondoren, proposizioen logika eta logika **elementalaren** funtsezko tresnak aurkeztuko dira. Askoren artean

Hegi erraz delakoa erraza zatekeen noski, are **elementala** , udan, baina guk egoera deseroso askoan aurkitu genuen. Juan Garzia

Minimoa eta **elementala** , egunerokotasunaren erritmoan zihoana. Xabier Mendiguren Elizegi

Zera zen kontua, kalkulu estekiometriko **elemental** bat egin, eta zink ale-xehekatuari aurrez uretan disolbaturiko azido sulfurikoz erasotzea; kontzentratu, kristalizatu, ponpaz xukatu, garbitu eta birkristalizatzea. Juan Garzia

Guztiz **elementala** iruditu zitzaidan berak esandakoa baina ez nion, hala ere, ezer ihardetsi. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **logika elementala** (3); **partikula elementalak** (3)

---

elemento ik **elementu**.

---

elementu *(orobat **elemendu** g.er. eta **element** g.er.)* 1 *iz* osagaia.

Hurbiltasunaren legea: elkarrengandik hurbil dauden **elementuak** aiseago pertzibitzen dira forma bateratu baten osagarri gisa elkarrengandik urrutiago dauden **elementuak** baino. Josu Zabaleta

Elementu horiek egiten dute irudia; horiei egin behar die aurre lehendabizi ikusleak. Josu Zabaleta

Proportzionatzea, era berean, obra bereko **elementuen** artean adostasun egokia lortzea da, eta parte bakoitza, berezirik hartuta, ondo etortzea obraren itxura osoarekin. Santiago Iruretagoiena

Pertzepzioaren **elementuak**: zer pertzibitzen da? Josu Zabaleta

Kolomen kapitelen gainean joango diren **elementu** guztiak, hau da, arkitrabe, friso, erlaitz, tinpano, frontoi, akroteriak, altueraren hamabiren bateko inklinazioarekin egin behar dira. Santiago Iruretagoiena

Arriskutsuak edo toxikoak izan daitezkeen **elementuak** kentzen dizkiete kotxe zaharrei. Berria - Gaiak

Gainerako **elementu** guztiak, hala nola tinpano, sima eta erlaitzak, ordena joniarrari buruz gorago esandakoen arabera egingo dira. Santiago Iruretagoiena

Mintzamenaren fluxuaren **elementuen** banaketa. artikulatu gabeko **elementuak**. Itziar Laka

Aldaketak beti sistemaren **elementu** batean edo bestean gertatzen dira, eta inoiz ez sistema osoaren gainean. Berria - Euskal Herria

Berezko aglutinazioa, hau da, sintagmaren **elementuen** sintesia, banako berri batean. Isabel Arrigain

Sistema periodikoko **elementu** guztiak. Juan Garzia

Trumoia begiek oinaztua ikusi eta gero belarrietan atzematen badugu, belarrira datozen **elementuak** beti begiei eragiten dietenak baino astiroago dabiltzalako da. Xabier Amuriza

Ederra zen konposizioa, inpaktu handikoa, baina Quexek soinean zeraman *Hitlerzaleak* taldekoen uniformea zen, nire ustez, irudiari indar gehien ematen zion **elementua**. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Burmuina gai da beren **elementu** osagaietan zatitzeko gertakari iraganen irudi oroituak. Juan Garzia

Zer **elementu** berri ekartzen du dokumentu honek? Herria

Irudimena da indar eragilea, **elementu** sortzailea, artean nahiz beste zeinahi jarduera intelektualetan bezala zientzian ere. Juan Garzia

Bertsolaritzan, zer esanik ez, errima da **elementu** nagusietako bat. Iñaki Arranz

Sexualitatea izan da, agian, **elementu** erabakigarriena. Ana Urkiza

Proletalgoa berez **elementu** ezerosoa izaten da gizarte batean. Iñaki Mendiguren

Bada **elementu** militar bat (gudaria danborra jotzen), bada **elementu** zibil bat ere (iturrietara ur bila doan okina edo sukaldaria). Askoren artean

Beste paisaia batean ez genuke **elementu** fatal hori edukiko. Bernardo Atxaga

Elementu grafiko soilak, irudi "abstraktuetan" batez ere berebiziko garrantzia dutenak. Josu Zabaleta

Irudiaren **elementu** plastikoak, zehazki hitz eginez, [...] irudi hori ikusmenezko forma multzo bezala ezaugarritzen eta forma horiek eratzeko bide ematen dutenak dira. Josu Zabaleta

Esku-soinua **elementu** ohikoa da XIX. mende amaierako afitxetan. Koldo Izagirre

Plastikaren azterkizuna ez baita, izan ere, **elementu** diskretuz, etenez eratzen diren sistemak, *continuum* bat baizik, progresiboki, gradualki aldatuz doazen **elementuak** baizik. Josu Zabaleta

Zineman ere **elementurik** emozioz kargatuena musika izan da beti. Josu Zabaleta

Morfemak, esanahia duten **elementurik** txikienak dira. Itziar Laka

Hizkuntza sistema baten **elementu** organikoak. Isabel Arrigain

Hortaz, hizkuntzetan, **elementu** bakartuetan soilik zertzen dira aldaketak. Isabel Arrigain

AGren auzian «**elementu** kezkagarriak» daudela ohartarazi du Lamarkak. Berria - Harian

Multzo bitar batek elkar kondizionatzen duten zenbait **elementu** mekaniko eta akustiko inplikatzen ditu. Isabel Arrigain

Elementu genetikozko hierarkia batek gobernatzen du, bada, euliaren garapena. Juan Garzia

Hipokrates Kiosekoak matematikaren historiako lehenengo **Elementuak** idatzi zituen, Euklidesek baino ehun eta berrogeita hamar urte lehenago. Jon Muñoz

Elementu musikal hori kohesiozko **elementu** erabakigarria da, ez bakarrik Danborradaren bilakaerarena, baita Danborradaren existentziarena berarena ere. Askoren artean

Judizioan parte duten oinarrizko **elementuak** honako hauek dira: (1) sentsazioak eta kontzeptuak, (2) kontzeptu enpirikoak eta kontzeptu hutsak (edo apriorikoak), eta, azkenik, (3) Ideiak. Askoren artean

Ikusleak bere espazioaren eta irudiaren espazio plastikoaren artean ezarri ahal izango duen erlazioa mugatu eta zehaztuko duten oinarri-oinarrizko **elementuetako** bat izango da irudiaren tamaina. Josu Zabaleta

Konfrontazio demokratikoko planteamenduarentzat desobedientzia zibila funtsezko **elementua** da. Berria - Euskal Herria

Horren aurkako erantzun bortitzak desadostasunezko **elementu** bat sartu du herriaren errebindikazioan. Piarres Xarriton

Orain arte imajinaziozko **elementuak** ikusmenerako irudikatzen dituzten irudikapenezko **elementuen** barnean dagoen zerbait bezala aztertu dugu irudiaren zentzua. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez gorputzik eta ez gauzarik ez da sortuko eta ez da adimenez ulertzeko gai izango ez bada **elementu**-elkarketa honen bidez. Santiago Iruretagoiena

Mundu bizia **elementu** kopuru finitu baten konbinazio modukoa da, eta mekano erraldoi baten itxura du. Juan Garzia

Hizkuntza perpaus-talde (mugatu edo mugagabe) bat dela ontzat hartuko dut, perpaus guztiak luzeran mugatuak direlarik, eta **elementu**-talde mugatu batetik eraikiak. Itziar Laka

Maila bakoitza guztiz soila delarik, maila horretako **elementu**-hurrenkera bakar bati perpaus bakarra baitagokio, eta horixe baita perpausak maila horretan duen itxurapena. Itziar Laka

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Saussureren pentsamoldean, diakronia, une bakoitzean, hizkuntza **elementu** bakar bati dagokio. Isabel Arrigain

Ekialde Erdiko eta Ekialde Hurbileko herrietako jarreretan dautzan botere-**elementu** eta geopolitika-**elementu** bereziak, eta zenbait demasakeriak erreibindikazio baten inguruan biltzeko eskain dezakeen aukera. Jon Alonso

Literatur **elementuaren** ordezkoa bilatu behar da irudietan. Berria - Harian

Formak, bakunak zein konplexuak, garrantzi handiko adierazpen-**elementutzat** hartu izan direla beti. Josu Zabaleta

Adierazgarritasun-**elementuen** zerrenda ez da luze-luzea, berez, baina aise ikusten da haiek konbinatuz era daitezkeen konfigurazioen kopurua ia infinitua dela. Josu Zabaleta

Doinu horiek gabe, Donostiako jaia, Danborrada, ez zen izango oinarrizko identifikazio **elementu** bat, ez zuen zentzurik izango. Askoren artean

Hitzarmen hori egonkortasun-**elementua** ere izan daiteke, herritarrek kontuan hartu dituztela sentitu dezakete eta. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Europak munduan zehar eraikitzen ari diren beste nazio eta errealitate makro-erregionalentzako erreferentzia **elementu** izaten jarraitu behar du. Berria - Harian

5 antzinakoen lau gai bakunetako bakoitza.

Pitagorasek eta Enpedokles, Epikarmo eta beste fisiko eta filosofo zenbaitek esan zuten printzipio horiek lau zirela: airea, sua, lurra eta ura; eta **elementu** horiek elkarrekin koherentzian osatuz, berezko konfigurazioaren arabera, ezaugarri guztiak ematen dituztela espezieen arteko bereizketen arabera osatuz. Santiago Iruretagoiena

Lau **elementuok**, beren tokietara itzultzeko, egiten dituzten lerro zuzeneko mugimenduak bitarikoak dira: zirkunferentziaranzkoa, suari eta aireari dagokiona, eta erdiguneranzkoa, urak eta lurrak egiten dutena. Xabier Kintana

Lau **elementuek** osaturiko mundua dugu, fisika lurtarraren legeen mende dagoena, eta, horren arabera, mugimendua zuzena da, gorantz airean eta surtan, eta beherantz lurrean eta uretan. Xabier Kintana

Haritzak lau **elementuetatik** lurra izaten du ugari, eta aldiz, urriak izaten ditu ura, airea eta sua. Santiago Iruretagoiena

Kareak harea eta ura hartzen dituenean, egituraz zergatik gogortzen ote den galdetuz gero, badirudi hau dela horren arrazoia: harriak ere, beste gorputz guztiak bezala, lau **elementuez** osatzen direla. Santiago Iruretagoiena

Kontuan hartzekoa dira, berebat, altzifrea eta pinua ere; horiek ura izaten dute ugari, eta gainerako **elementuak** ere proportzio berean guztiak. Santiago Iruretagoiena

6 (hitz elkartuetan)

Zuhaitz-mota bakoitzari dagokionez, azaldu ditut beren **elementu** -osaeraren arabera zein propietate dituen itxuraz bakoitzak, eta zein egoeratan hazten diren. Santiago Iruretagoiena

7 *adkor* pertsona, alea.

Elementu faxisten bila omen zebiltzan... aulki azpietan. Inazio Mujika Iraola

Gaztigatu baitzieten hainbat **elementu** marxista eta separatista ihesi joan zitekeela. Inazio Mujika Iraola

Nire polizi lana Errusiako etorkinen artean **"elementu** subersiboak" bijilatzea izango zela. Matías Múgica

Jaun eta fortuna-zaldunok, ongi ezagutzen dut; ez da **elementu** makala. Juan Garzia

Bost azterketa bakarrik daude ganoraz erantzunda; norenak eta gelako pelota higuingarrienenak: Silvia, Raul eta aurreko ilaran jesartzen ziren **elementu** jasanezin horienak. Jon Arretxe

-Ederra **elementua** ! Josu Zabaleta

Jack Mooneyk, Madamaren semeak, zeina Fleet Streeteko artekari baten enplegatu baitzen, **elementu** gogorraren fama zuen. Irene Aldasoro

A zer **elementua** ! Juan Luis Zabala

A zer **elementua** , zera! Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anitz elementu (3); **artean elementu** (4); **bada elementu** (4); **badira beste elementu** (3); **baina elementu** (11); **bateko elementu** (6); **baten elementu** (5); **berriro elementu** (3); **beste elementu** (42); **beste elementu bat** (8); **beste elementu batzuek** (3); **beste elementu batzuk** (9); **beste hainbat elementu** (4); **beti elementu** (3); **bi elementu** (25); **bi elementu horiek** (5); **bost elementu** (3); **da elementu** (17); **dagoen elementu** (5); **den elementu** (5); **den elementu bat** (3); **dira elementu** (8); **diren elementu** (9); **diren elementu guztiak** (3); **diren zenbait elementu** (3); **ditu elementu** (3); **dituen elementu** (8); **dituen elementu guztiak** (4); **du elementu** (8); **duen elementu** (13); **duen elementu bakarra** (3); **dugu elementu** (3); **duten elementu** (13); **edo elementu** (9)

elementu asko (13); **elementu bakar** (5); **elementu bakarra** (9); **elementu bat** (49); **elementu bat ere** (6); **elementu bat izan** (3); **elementu bat izango** (3); **elementu batek** (6); **elementu bateratzaile** (3); **elementu bati** (3); **elementu batzuek** (5); **elementu batzuekin** (3); **elementu batzuen** (6); **elementu batzuez** (3); **elementu batzuk** (25); **elementu bera** (4); **elementu berezi** (3); **elementu berri** (10); **elementu berriak** (12); **elementu ditu** (3); **elementu elektronikoak** (3); **elementu eta** (7); **elementu ez** (3); **elementu ezin** (3); **elementu fonikoen** (3); **elementu garrantzitsua** (11); **elementu garrantzitsua da** (4); **elementu gehiago** (6); **elementu gehienak** (3); **elementu gisa** (11); **elementu gutxi** (4); **elementu gutxirekin** (3); **elementu guztiak** (34); **elementu guztiek** (5); **elementu guztiekin** (5); **elementu guztien** (9); **elementu hartzen** (3); **elementu hauek** (7); **elementu honek** (5); **elementu hori** (10); **elementu horiek** (60); **elementu horiek guztiak** (10); **elementu horiek guztiek** (4); **elementu horiekin** (6); **elementu horien** (14); **elementu horien arteko** (3); **elementu horietako** (5); **elementu horietan** (3); **elementu kimiko** (3); **elementu kopuru** (5); **elementu nagusi** (6); **elementu nagusia** (8); **elementu nagusiak** (7); **elementu nagusietako** (3); **elementu nagusietako bat** (3); **elementu narratibo** (3); **elementu oro** (3); **elementu oso** (3); **elementu politiko** (3); **elementu politikoa** (3); **elementu positiboak** (3); **elementu positiboak eta** (3); **elementu soil** (5); **elementu txiki** (3); **elementu ugari** (6); **elementu zehatz** (5)

eraketako elementu (3); **ere elementu** (8); **eta beste elementu** (3); **eta elementu** (36); **eta elementu horiek** (7); **ez da elementu** (5); **ez elementu** (3); **ezinbesteko elementu** (3); **gainerako elementu** (5); **hain elementu** (3); **hainbat elementu** (23); **haren elementu** (3); **hiru elementu** (22); **hiru elementu horiek** (5); **hirugarren elementu** (7); **honetan elementu** (4); **horren elementu** (3); **kultur elementu** (6); **lau elementu** (7); **osatzen duten elementu** (4); **oso elementu** (9); **oso elementu gutxirekin** (3); **sistemaren elementu** (3); **unibertsoko elementu** (3); **zein elementu** (3); **zenbait elementu** (18); **zer elementu** (3); **zeren elementu** (4); **ziren elementu** (3)

bateko elementuak (3); **baten elementuak** (3); **behar diren elementuak** (3); **bere elementuak** (3); **beste elementuak** (3); **bestelako elementuak** (3); **bi elementuak** (5); **dagoen elementua** (3); **daitezkeen elementuak** (4); **dauden elementuak** (8); **diren elementuak** (10); **dituen elementuak** (7); **dituzten elementuak** (6); **do elementua** (3); **duen elementua** (4); **duten elementuak** (22); **egiteko elementuak** (3); **elementua da** (18); **elementua ere** (3); **elementua zen** (3); **elementuak baino** (3); **elementuak bata** (3); **elementuak beste** (4); **elementuak dira** (10); **elementuak direla** (5); **elementuak ere** (7); **elementuak eta** (8); **elementuak ez** (5); **elementuak ikusten** (3); **eta elementuak** (5); **eta gainerako elementuak** (4); **euklidesen elementuak** (3); **ez duten elementuak** (3); **ezinbesteko elementua** (3); **funtsezko elementua** (11); **funtsezko elementua da** (7); **gainerako elementuak** (10); **hirugarren elementua** (3); **izateko elementuak** (3); **kanpoko elementuak** (3); **lau elementuak** (6); **lehen elementua** (4); **lehen elementuak** (3); **mailetako elementuak** (3); **oinarrizko elementua** (5); **oinarrizko elementuak** (9); **osatzen duten elementuak** (7); **zuten elementuak** (3)

bereko elementuen (3); **beste elementuetako** (3); **beste elementuren** (4); **beste elementuren bat** (4); **duten elementuen** (5); **elementuei buruzko** (3); **elementuen arabera** (5); **elementuen artean** (6); **elementuen arteko** (7); **elementuen erabilera** (3); **elementuen inguruan** (3); **elementuen sintesia** (3); **elementuetako bat** (8); **elementuez osatutako** (3); **elementuez osatutako segida** (3); **elementuren arteko** (3); **elementuren bat** (12); **elementurik ez** (5); **elementuz osatua** (4); **elementuz osaturiko** (3); **eta elementuen** (4); **hainbat elementuren** (5); **mailako elementuen** (3); **osatzen duten elementuen** (3)

---

elenera *iz* grekoa, Greziako hizkuntza.

Ba..., h-ari **eleneraz** ETA esaten zaiolako. Koldo Zuazo

---

eleontzi *izond/iz* hitzontzia.

Inkaminari **eleontziak** eta malabarista enganatzaileak. Joan Mari Irigoien

Kalakaria eta **eleontzia** zen. Joan Mari Irigoien

Oherakoan, berriz, eperra baino **eleontziago** aritu zitzaidan Mattin: [...]. Joan Mari Irigoien

Zeren eta, arestian erran bezala, hitzontzi eta **eleontzi** hutsa baitzen gizon hura, nehola ere ez justu eta doi. Joan Mari Irigoien

---

elepe *iz* iraunaldi luzeko diskoa.

Gero, sorkuntza krisia ezagutu zuten, hirugarren **elepearen** sindromea deitutakoa alegia. Patxi Iturritegi

---

elephantiasi ik **elefantiasi**.

---

elephantiasis ik **elefantiasi**.

---

elepide *iz* **

Oroz gainetik badu nornahi eta noiznahi bere amodiora biltzeko jeinu arras baliagarria, trebea baita **elepide** hori lagunartera ekartzen. Jon Muñoz

Hitz pare bat gaineratu nahi nuke nik ere kontu honetaz, Zuazoren eta Rubioren liburuak hartuz **elepide** , biek adierazi baitituzte beren ideiak liburuen bidez. Pello Salaburu

Nire ausentzia bet-betako eta erabateko horrek ez ote die **elepide** gehiago emanen saihestu nahi dituzun esamesei, zeure etxeko atarian arrazoi horregatik beretik eman nahi izan ez dizkidazun manuek baino? Jon Muñoz

Zu izan zintugun **elepide** . Jon Muñoz

---

eleramaile *iz* eleduna.

Batasunako **eleramailea** entzun dut behin irratian, alderdiak batera joaten alde mintzatzen. Berria - Kultura

---

elerran, elerran, elerraten du *ad* hitz egin.

Sohütako süpermerkatü ondoan ükenez etxea, horrat üsü horra zen batekin eta besteen mintzatzera: ene emaztearekin asteko erosketen egitean, **elerraiten** günüan kasik aldikal. Herria

-Nork ez du ama birjina **elerran** hondar mende hauetan? Itxaro Borda

---

elerti *iz* literatura.

Bi urtetan, zazpireun orrialdetan, berreun idazlan eman dizkigu, jakintza, **elerti**, musika, olerti eta abar azaldurik. Koldo Zuazo

---

elesta **1** *iz* hizketa.

Barneak bisitatü ondoan, tzüntzürrak busti dütügü, batekin eta besteekin **elestaz**, eta irratiko lehendakari andereak, Eskiulako Maritxu Castillon-ek esker honezko mintzaldi bat egin deigü, honen ondotik irakurriko düzüena. Herria

2 ***elestan*** hizketan.

Bi gizon ari ziren zintzoki **elestan**. Herria

Eta han **elestan** ari ginen lau putikori galtegin zeigün, hitz gütiz, alemanik bazenetz Ündüreineko karrikan. Herria

Hilabetean behin, ostirale arratseko 8etan, hiru irratien artean, Xiberoko Botzaren aüzoa den Zinka ostatütik, sonüegile talde bat aldizka entzünen da püblikoan, bai müsikan, baia **elestan** noiztara, xüxenka. Herria

Haraintian ordükoz frantzesez **elestan** hasirik ziren gure adineko putikoak. Herria

---

elestari *iz* hitz egiten duena.

Dena jestu, **elestaria** ere, ez dakit batere halakoa zen egiazki Probentzako laboraria. Herria

---

elestatu, elesta, elestatzen *(orobat **eleztatu** g.er.)* da/du *ad* mintzatu.

Mintza gaitezen gutaz, **elesta** gaiten gure eguneroko jardueraz. Herria

Orain, goazen etortzekoaz **elestatzera**: ez dauka zerikusirik joanarekin. Joxe Azurmendi

Denek badakite bakearen ardiesteko bide bakarra dela elgarretaratzea, mintzatzea, buruz buru eta zintzoki **elestatzea**. Herria

Luannyren amarekin **elestatzea** erabaki nuen. Gotzon Garate

Elestatu lañoki emazte gizonak. Herria

Filma egitea, izaki bizidun batekin **elestatzearen** antzeko. Berria - Kultura

"Beharko tiuk erdiak kendu hola segitzen badu", zion **elestatu** dutan gizon batek. Herria

Manana Larre adineko emaztea ur bazterretik artilez hanpatu zakua bizkarrean zetorrela **elestatu** zuen. Itxaro Borda

"Corps-Franc Pommiès" beste armako hogeita hamar bat güdari oihal-etxoletan zaudean Ürrüstoiko eliza gibelean, erreka bazterreko oihanxka batetan, eta kateximа egünez **elestatzen** güntüan. Herria

---

eletrika ik **elektrika**[1].

---

eletriko ik **elektriko**.

---

eletxar ik **ele 11**.

---

elezahar *(orobat **ele zahar**)* **1** *iz* aspaldiko gertaerei buruzko kontakizun alegiazkoa.

Iraultza batean historia baino **elezahar** gehiago izaten dira. Jon Muñoz

Historiarekin urrutitik ere zerikusirik ez duen **elezahar** hau Bizente Aranari zor diogu. Martin Anso

XVII. mendeko **elezahar** baten arabera, Laorens eta Saubade gazteak zeharo maiteminduta zeuden. Martin Anso

Elezahar batek dio deabrua Torinoren jabe egin zela Danteri infernura jaisten uztearen truke. Anjel Lertxundi

Elezahar batek zioenez, santu judu bat zegoen lurperaturik leizean. Juan Kruz Igerabide

Bazen **elezahar** bat ere zioena, [...] zalgurdi batetik gona zimurtuta eta ilea trakets eta banatuta, mantelina eta guzti emazte bat irteten ikusi eta Lady Libertyren aurpegia osatzeko Bartholdik haren hazpegi lizunen gomuta abiapuntutzat hartu zuela. Harkaitz Cano

Bitxia da gure artean, Sanmiel eta Sanmartin Ttiki **elezahar** eta legenda askorekin lotuta geldituak izatea, Patxi erementariarekin batera. Pello Zabala

Elezahar honen bi aldaera behintzat ezagutzen ditut. Martin Anso

Hainbat egilek istorio hau aipatu eta bakoitzak zertzeladaren bat erantsi dio, kronika hutsa **elezahar** bihurtzeraino. Martin Anso

XVII. mendeko istorio zena XIX. mendean, erromantizismoaren zurrunbiloan, **elezahar** bihurtu zen. Martin Anso

Elezahar baten protagonistei dagokien bezala, zaldun lerden prestua zen mutila, eta neska, berriz, eder bezain bihotz onekoa. Martin Anso

Ekonomiari buruzko mito eta **elezahar** askok eta askok, aurrera egin duen edozein uste edo sineskeriaren antzera, izango du-eta sinesgarri den ideia orok behar duen egia-parterik. Iñaki Heras

Elezahar haietan guztietan bazegoen, bada, Noraren aitak erakusten ez zuen garrantzi beteko zerbait: gizakiek iniziatiba zuten, gizakiak patuaren aurka matxinatzen ziren. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Istorio hau Donejakue Bideko **elezahar** modernoen artean sailkatu zuen Jimeno Juriok. Martin Anso

Lisak ipuinak kontatzen zizkion haur bati bezala; oso istorio politak zekizkien, **elezahar** miragarriak, bildots eta aingeru txikiz beteak. Karlos Zabala

Bikain idatzitako **elezahar** jakingarriez bizkortzen zuten ikasle gazteen arreta. Imanol Unzurrunzaga

Gaztelu horretan girotu zuen Juan Iturralde y Suitek "Salkindaria" (saltzailea), 1878an idatziriko **elezahar** patriotikoa. Martin Anso

Nekez aurkituko da, ordea, San Bartolome inguruan, Milafrangan bezain **elezahar** tragiko eta, aldi berean, ederrik. Martin Anso

Elezahar ederra, baina elezaharra hau ere, azken batean. Iñaki Heras

Gizontxoaren istorio paranoikoan, pixkana-pixkana, herriko **elezahar** aspalditik temati errepikatu baten oihartzuna sumatzen hasia nintzen. Juan Garzia

Dirudienez, Proudinesen zubiko **elezahar** biribila batez ere Hippolyte Taineri zor zaio. Martin Anso

Errusiar **elezahar** batek dio, [...]. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan)

Zelten **elezahar**-sorta aberatsean, hurra beti ageri da jakituria mamituaren zeinu eta sinbolo. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintziraren elezaharra (3); **beste elezahar** (3); **duen elezahar** (3); **elezahar bat** (5); **elezahar batek** (9); **elezahar batek dio** (5); **elezahar baten** (4); **elezahar eta** (3); **elezahar hau** (6); **elezahar honek** (3); **elezahar honen** (7); **elezahar honi** (3); **elezaharrak dioenez** (9); **elezaharren bidetik** (6); **elezaharretako errege** (3); **eta elezahar** (3); **eta elezaharrak** (5); **michel mendiko elezaharra** (3)

---

elezahargile *iz* elezaharren idazlea.

Vicente de Arana bilbotarra (1840-1890) gure **elezahargilerik** oparoenetakoa da. Martin Anso

Arakistainek (Deba, 1928-Tolosa, 1906) sekulako eragina izan zuen bere garaiko **elezahargileengan**. Martin Anso

---

elezakar *izond* zakar hitz egiten duena.

Inixio euskarazko tipo mohikano **elezakar** bat da, eta itota bizi da hainbeste idiota elebakar eta elebidun izeneko belarrimotzekin. Iñaki Segurola

---

elezione *iz* **

Fanchek Mary Balesteren **elezionea** apurtu zuen brauki. Itxaro Borda

---

elezko *izlag* hitzezkoa.

Aldizkako saiotan astintzen zuen haren bizkarra lehendakariaren **elezko** metrailetak. Joxan Elosegi

---

eleztatu ik **elestatu**.

---

elezuri ik **ele 13**.

---

elfo *iz* iparraldeko mitologiako izakia; J. R. R. Tolkienen idazlanetako izaki ia ilezkorra.

Azkenik Elrond Jauna, **elfo** eta gizakien artean boteretsua, Annúminasko zetroa zeramala. Agustin Otsoa

Ez da sinestekoa jabearen alaba izatea, haren arras aurkako eitea baitu, miragarriro, **elfo** ilunen iratxo-tankera; eta, fin delikatua baita. Mirentxu Larrañaga

Elfo bat lurraren erraietan sartzea eta nano bat ez ausartzea! Agustin Otsoa

Gimli, Gloinen semea, bere buruari gizakiak baino sendoagoa eta lurpean **elfo** guztiak baino ausartago zeritzona. Agustin Otsoa

Agian egia da antzinako kondairek diotena: **elfo** odola daramatela zainetan, alegia. lehendabizi Samen ezpata laburra erakutsi zuen, gero **elfo**-orratza zeraman kapa grisa. Agustin Otsoa

Eraman ezak orain hau **Elfo**-Harriaren eta Arratseko Izarraren oroigarri gisa, jadanik hire bizitzaren parte izango baitira betiko. Agustin Otsoa

Esan Shagrat Kapitainari **elfo** gerlari handiak hots egin duela, eta ezpata elfotarra dakarrela! Agustin Otsoa

---

elfotar *izond/izlag* elfoena, elfoei dagokiena.

-Izaki **elfotarrak** dira. Agustin Otsoa

Hor duk, tori **elfotar** gaileta hau eta edan ezak heure botilako azken tanta. Agustin Otsoa

Gero, **elfotar** mantua zabalduz, gerriko astuna ireki eta lurrean erortzen utzi zuen, eta haren ondoan ezpata eta zorroa. Agustin Otsoa

Itzuli eta soka **elfotarraren** zati bat moztu zuen, Frodok kapa grisa gerriaren inguruan lotu zezan. Agustin Otsoa

Esan Shagrat Kapitainari elfo gerlari handiak hots egin duela, eta ezpata **elfotarra** dakarrela! Agustin Otsoa

Gero, jaiki, kapa **elfotarra** jantzi eta burua lanean jartzeko, batera eta bestera hasi zen, presondegiko bazter guztiak miatu eta arakatuz. Agustin Otsoa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kapa elfotarra (6)

---

elgar ik **elkar**.

---

elgarbizitza ik **elkarbizitza**.

---

elgargo ik **elkargo**.

---

elgarkidetasun ik **elkarkidetasun**.

---

elgarlan ik **elkarlan**.

---

elgarrataratu ik **elkarretaratu**.

---

elgarretaratu ik **elkarretaratu**.

---

elgarretaratze ik **elkarretaratze**.

---

elgarretartze ik **elkarretaratze**.

---

elgarrizketa ik **elkarrizketa**.

---

elgartasun ik **elkartasun**.

---

elgartu ik **elkartu**.

---

elge *iz* alorra, lur landua.

Oihanak eta abereak salduko zituen, **elgeak** eta landak suntsituko. Elena Touyarou

Ura eta urretzen ari ziren **elgeetarik** ebaki eta zazpinaka josi ogi-buruak benedikatu zituen apezak. Berria - Kultura

Harrigarria duk, hilabete batzuk lehenago lantegietan edo eskoletan, edo oraino **elgeak** goldez udalatzen idien hotsemaile perestuki lanean ari ziren haur hutsak nola aldatu dituen armadak eta indarraren gorazarreak. Itxaro Borda

Loiroko lohian zanpa-zanpa aitak, Artoizeko **elgera** laguntzen zuen bildots-saldoaren itxura eroa baizik ez zen ageri. Itxaro Borda

Izengabeko mendietarik zetorren buztin-urak erreka loditzen zuen, eta **elge** bazterra apalago zen tokietan irudi zuen ibaiaren sabela hantzen bezain nagitzen zela. Itxaro Borda

Elge malkarreko iratze eta ote-goroztun puloak. Itxaro Borda

Elge biluzietarik datozkidan ardi marraka elkor bezain txukunak. Itxaro Borda

Elge agorrak putzuz estali zituen euri zaparrada bota zuen. Elena Touyarou

---

elgoibartar *izlag/iz* Elgoibarkoa, Elgoibarri dagokiona; Elgoibarko biztanlea.

Hauxe da Iriondo, On Inazio Iriondo **elgoibartarra**, hazitarako gordetzeko moduko gizabanakoa; eta honako hau Itziar Arrizabalaga. Jokin Urain

SAk proposamenean gogorazi duenez, datorren ekainaren 8an epaituko dute preso **elgoibartarra** lehen instantzian. Berria - Euskal Herria

Joseba Etxeberria Athleticeko aurrelari **elgoibartarrarentzat** partida oso berezia izango da igandekoa. Berria - Kirola

Karia hortara, Sabin Osoro **elgoibartar** argazkilariaren laguntza ukan du. Herria

Oraikoan, aitzineko blues erritmoak alde batera utzirik, rock doinuetara jo du talde **elgoibartarrak**. Herria

Duela gutti, **elgoibartar** ukabilkaria lehen aldikotz igan da "ring" baten gainera. Herria

Euskarri postuan aritzen den **elgoibartar** honek, 17 urte baino ez ditu. Berria - Kirola

Ezker alboko **elgoibartarra** itxaropentsu dago, eta Bidasoak gora egingo duela dio. Berria - Kirola

Gaur erabakiko du **elgoibartarrak** zer egingo duen. Berria - Kirola

Ihiztari trebeak dira **elgoibartarrak**! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ezker hegaleko elgoibartarrak** (3); **preso elgoibartarraren** (3)

---

elgorri **1** *iz* eritasun kutsakorra, batez ere haurrak jotzen dituena, hasieran hotzeria eta ondoren larruazalean agertzen diren gorrigune txiki ugariak ezaugarri dituena. ik **txarranpin**.

Duela mende bat, gripea, nafarreria, **elgorria** eta kolera moduko gaitz infekziosoak ziren osasunaren etsaiak. Berria - Euskal Herria

Elgorria omen zuen eta, Munnings jaunak esan zigunez, larri zegoen oso. Mirentxu Larrañaga

Nik, **elgorriaz** aparte, sekula ez dut neure bizitzan gaixotasunik izan. Joxe Austin Arrieta

Ondotxo genekien ez zigutela utziko Molly ikusten, **elgorria** gaixotasun oso kutsagarria zelako. Mirentxu Larrañaga

Taibelek seme bat eta bi alaba eman zizkion senarrari, baina txikitan hil ziren hirurak: kukutxeztulaz bat, **elgorriaz** bestea, eta difteriaz hirugarrena. Koro Navarro

Begi irtenak zituen eta aurpegian **elgorriaren** arrastoak ageri zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Beste gaitz batzuen birusak ere atzeman izan dira aurretik, malkoetan, herpesarena, hepatitisarena eta **elgorriarena** kasu. Berria - Gaiak

Elgorriak, tuberkulosiak eta malariak jota milaka lagun hiltzen dira urtero. Berria - Harian

Zabaltzera joan zelarik, pozarren eta alegera begiztatu zuen **elgorriak** jotako Um Hamidaren begitartea. Patxi Zubizarreta

Wendyk aurrera egin zuen, bere haginek hamabi libera eta sei txelineko gastua baino ez zuten sortu, eta **elgorria** izan zuen, baina errubeolarik ez. Julen Gabiria

2 (hitz elkartuetan)

Nire esku ditut, eta poztuko zaitu entzuteak, Miss Cardewren jaiotza-agiria, bataio-agiria, kukurruku eztularen agiria, erroldarena, txertoarena, sendotzarena eta elgorriarena; bi **elgorri** motena, bai Alemaniakoa bai Ingalaterrakoa. Antton Olano

Sri Lankan, esaterako, lehenbiziko **elgorri** eta beherako kasuak agertu dira, eta Indian uretatik bizirik atera diren 65.000 bat pertsonari kolera, sukar ustela, disenteria eta A hepatitisaren kontrako txertoak jartzen hasi dira sorosle taldeak. Berria - Mundua

---

elhe ik **ele**.

---

elibat[1] *(orobat **eli bat** g.er.)*

Dena dela, "Mission de France"-ko apez talde bati lotürik zagoan Ihidoy, diosesako beste apez gazte **elibatekin**. Herria

Egüerdi altean horrat bildü da jente oste ederra, haütetsi eta kasetari **eli batekin**. Herria

Orai berri arte, biarnes eta landes **elibatek** erabilten züen gure laidoz,“ sale basque” erraiteko, arriskürik hartü gabe. Herria

Beste dei **elibat** üken dütüt Xiberotik. Herria

Zer baratzen zaigü: oritzapenak, dokümentü **elibat** (argazkiak, artikülüak, libreta, CD bat edo biga, laster DVD bat) eta parte hartü dügünen arteko adiskidantza. Herria

Gizon bat dator orain, presaka, eta Ferminengana lepoa luzaturik hitz **eli bat** bota dio zaparradan, Ferminek "esaiek horiei" esan dion arte, ez dakit nor seinalatuz. Pako Aristi

Presoak ere jente direla, eta horrez eskübide eta züzen **elibat** bat badütüela, bereziki beren herritik ahal bezain hüllan egoitekoa, legeak berak dioen bezala. Herria

Lehenik, antzerki llabür **elibat** jokatüko dütüe, 3 gei haütatü dütüe. Herria

Hitz arrunt **elibatetan** ere beharrezkoa zaigü tildea, ahoskera gatik. Herria

---

elibat[2] ik **eli**.

---

elikabide *iz* elikatzeko bidea.

Janariak gu elikatzea helburu bakarra ez duenez, kultura desberdinetako elikagaiak nahasiko dituzte eta **elikabide** berriek, ezagun ez ditugun zaporeak eskainiz. Edorta Agirre

Berariazko **elikabideak**. Edorta Agirre

---

elikadura **1** *iz* jatekoa, hazkurria; janaria, janariak.

Elikadura kulturaren parte bat da edo, bestela esateko, gizatalde baten antolamendu sozialaren egituratze-funtzioetako bat. Edorta Agirre

Hilabete asko zeramatzala **elikadura** zaintzen eta mendira joan-etorriak egiten. Bernardo Atxaga

Hortik ere erraz ondoriozta dezakegu nolako **elikadura** emango zaigun gizakioi. Edorta Agirre

Etiketak dezente aldatuko dira (osaketa nutrizionala, **elikadurazkoa**, kuzinatzeko modua, edukitzeko baldintzak eta antzekoez gainera bestelako informazio baliagarri ugaria eman beharko zaigu, [...]). Edorta Agirre

Lekadunez osatutako **elikadura**. Koro Navarro

Bai **elikaduran** bai jantzian. Esteban Antxustegi

Zein, nor, dira **elikaduraren** mundializazioaren benetako eragileak? Edorta Agirre

McDonald's munduko lehen jatetxea izango da tarte batean oraino: bera da **elikaduraren** industrializazioaren ikur behinena. Edorta Agirre

Elikadurarako produktuen kasuan ere (laboreak eta produktu tropikalak) eskaria ez da prezioei buruz elastikoa izaten. Koro Navarro

Munduko ama guztien **elikadurari** buruzko aholkuak jarraitzeko prest nengoen. Iban Zaldua

Nazio Batuen **Elikadura** eta Nekazaritzarako Erakundearen (FAO) 2003ko Txostenak adierazten duenez, guztira 842 milioi pertsona dira elikagai faltan direnak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

800 milioi pertsona gosez, **Elikaduraren** Munduko Egunean. Berria - Gaiak

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) 2004a Arrozaren Nazioarteko Urtea izendatzea erabaki du. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mendearen argia itzaltzear zela, eztabaida bizia sortu zen **elikadura** transgenikoekin. Pello Salaburu

Elikadura txarrak eragiten ditu munduan gaitz gehien. Berria - Gaiak

Elikadura egokia bultzatu ezean, hezkuntza eskubidea mugatua izango da. Berria - Gaiak

Elikadura osasungarriago hori ez du gustuko, antza, eta apenas ukitzen omen duen. Ramon Saizarbitoria

Eguneroko **elikaduraren** inguruko jakinduria transmititzea. Edorta Agirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaitz horri aurre egiteko, hala ere, **elikadura**-erregimen bat ezar daiteke, jaioberria salbatuko duena. Juan Garzia

Jendeak gurinaren aurrean zeuzkan **elikadura**-ohituren bilakaera eta ohitura horiek kolesterol-maila nazionaletan zuketen eragina ezagutzeko. Joxan Elosegi

Higiene eta **elikadura** gaietan bakarrik Luluk ez zion kasu askorik egiten bere senarrari. Josu Zabaleta

Elikadura tailerrak antolatuko dira Eihartzean, gai huntaz: "Gaur egun nola berriz ongi jaten ikasi". Herria

Goi-mailako chefak [...] hotel-katea eta **elikadura** alorreko enpresa industrial handien aholkulari izaten segituko du. Edorta Agirre

Haizeek dioxina hedatzen dute eta, euriekin, lurrean sartzen da; belarra kutsatzen du, eta animaliek jaten dutelarik, dena prest da jendearen **elikadura** katean sartzeko. Berria - Euskal Herria

Elikadura munduan ere gurpil zoroan biraka gabiltza: gehien kontsumitzen diren produktuak dira, azkenean, gehien gustatzen zaizkigunak. Edorta Agirre

Begiratu zure bularrei, finak eta leunak, plazer eta **elikadura** iturri. herrialde behartsuetan 5,6 milioi haur hiltzen dira urtean **elikadura** faltaren ondorioz. Luis Elberdin

Proteina-urritasunaren ondorio dira munduko **elikadura**-arazo ia guztiak. Irene Aldasoro

Elikadura akats larriak. Berria - Euskal Herria

Anorexia, bulimia eta beste **elikadura** desorekak gazteekin lotu izan dira sarri. Berria - Gaiak

Ez da teleskopio gaitza behar jendea kalean ikusteko, **elikadura**-eskubideen aldeko manifestazio zibiletan. Edorta Agirre

Elikadura denda berriak. Edorta Agirre

Elikadura zientziari esker etorkizunean gure dieta erruz aldatuko den arren, osasuntsu bizitzeko beharko ditugun funtsezko osagai eta elikagaiak gaurko berberak izango dira. Edorta Agirre

Antropologiako adar honek jorratu behar ditu elikagaien deslokalizazioa, **elikadura**-kolonialismoak (macdonalizazioa), orduz kanpoko "ezinbesteko" elikatze-azturak, [...]. Edorta Agirre

Elikadura-mafia baten buru izatera iritsi nintzela Etiopian, gosete garai latz izugarrian? Karlos Linazasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aise etorriko baita ikustera bere gorputz-**elikadurari** gehiena komeni zaiona. Patxi Altuna

5 irud/hed

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeak bide siriakotik bereganatu zuen kultur **elikaduraren** kopurua eta garrantzia. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abeltzaintza eta elikadura (5); **arrantza eta elikadura** (6); **dira elikadura** (6); **donostia elikadura** (3); **donostia elikadura eta** (3); **du elikadura** (10); **du elikadura eta** (4); **elikadura alorreko** (4); **elikadura arazoak** (3); **elikadura desoreka** (4); **elikadura desorekak** (12); **elikadura egokia** (9); **elikadura egokia jasotzen** (3); **elikadura eskasak** (3); **elikadura eta** (52); **elikadura eta nekazaritzarako** (36); **elikadura eta osasuna** (3); **elikadura hobea** (3); **elikadura kate** (3); **elikadura katean** (4); **elikadura kateko** (3); **elikadura kateko batzorde** (3); **elikadura ohiturak** (3); **elikadura ohituren** (3); **elikadura portaeran** (3); **elikadura sailak** (5); **elikadura segurtasunerako** (3); **elikadura txarra** (15); **elikadura txarra da** (3); **elikadura txarra dela** (3); **elikadura txarrak** (10); **elikadura txarrak eragiten** (3); **elikadura txarrarekin** (3); **elikadura txarraren** (5); **eta**

elikadura (33); **eta elikadura eta** (4); **eta elikadura sailak** (5); **fao elikadura** (12); **fao elikadura eta** (12); **haurren elikadura** (3); **kanpoko elikadura** (3); **munduko elikadura** (4); **otorduz kanpoko elikadura** (3)

elikadurarako eta (4); **elikadurarekin lotutako** (3); **elikaduraren gaineko** (3); **elikaduraren inguruko** (5); **elikaduraren munduko** (4); **elikaduraren oinarria** (3); **elikaduraren osagarriak** (3); **elikadurari dagokionez** (4); **eta elikaduran** (3); **eta elikadurarako** (5); **eta elikadurarekin** (3); **eta elikaduraren** (9); **nekazaritza eta elikadurarako** (3)

---

elikagai 1 *iz* elikatzeko gaia.

Bizitza-forma orok (mikroorganismo espezializatu batzuk salbu) bi gauza behar ditu: **elikagaia** eta oxigenoa. Irene Aldasoro

Elikagai gehienak ekoitzi, eraldatu eta kontsumitu egiten ditugu. Edorta Agirre

Bi **elikagai** jan behar dituzte egunero derrigor karreristek: pasta eta haragia. Berria - Kirola

Elikagaiak biderkatzeaz eta kontserbatzeaz. Edorta Agirre

Iraunkor diren **elikagaien** biltzea azaroaren 29an iraganen da, Sarako Herriko Etxean, 9ak eta eguerdi artean. Herria

Elikagaiak industrializatzearen ondorioez. Edorta Agirre

Elikagaien planifikazioa eta ikuskaritza. Edorta Agirre

Elikagaia egun deslokalizatua dago, hots, tradizioz zegozkion sorterri, lantze tradizional eta gorabehera klimatikoetatik deserrotua, deskonektatua. Edorta Agirre

Hondakin-sortzaile handienak direlako **elikagaien** industria (kontserberak, prekozinatuak), kateringa (enpresa eta antzeko kolektibitate handientzakoak) eta zentro banatzaileak. Edorta Agirre

Elikagaien handizkako merkataritzan lan egiten zuelako. Jokin Urain

Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko behartsuei laguntzen die **Elikagaien** Bankuak. Berria - Euskal Herria

Mila tona **elikagai** premiaz behar dituela esan du NBEk. Berria - Mundua

Txertaketa egiteko baimena eman zuen Europako Batasuneko **Elikagaien** Kateko Batzorde Iraunkorrak. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Elikagai naturalez. Edorta Agirre

Elikagai solidoak jaten hasi da. Berria - Kirola

Elikagai baliotsua baita glukosa. Irene Aldasoro

Bidaiari veneziarrak bere oharretan erantsi zuen hegazti erraldoi hori Madagaskarren bizi zela eta elefanteak zituela **elikagai** nagusi. Martin Anso

Orain arteko baserriko **elikagaiak** hirugarren edo laugarren munduan ekoitziko dira. Edorta Agirre

Emultsionagailuak, izozturiko **elikagaiak** pure edo krema bihurtzen ditu. Edorta Agirre

Laku, ibai eta itsasoko arraina hobeki aprobetxatzeko, landutako **elikagai** sintetikoak kontsumituko dira. Edorta Agirre

Urdanetak zuzendutako taldeak **elikagai** prebiotikoek eta probiotikoek eragin onuragarria duten aztertuko du. Berria - Gaiak

Ezohiko **elikagaia** prestatu zenion: galeperrak. Elizen arteko biblia

Kalitatezko **elikagairik** ez, goizeko ordu txikietan hor galdu denak saltxitxa plastifikatua aski du eta. Edorta Agirre

Diseinuzko **elikagai** bikainak ekarriko dizkigute. Edorta Agirre

Horrelako **elikagaiak** merkeagoak, ekologikoagoak eta osasuntsuagoak izango dira. Edorta Agirre

3 (hitz elkartetan lehen osagai gisa)

Egun batean, aita, Donibane-zuhaitzaren puntaraino igo ondoren, **elikagai**-saskia hartu gabe jaitsi zen. Joseba Urteaga

Egun, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian ekoizten diren **elikagai** produktuen %3 baino ez da ekologikoa. Berria - Ekonomia

Honako **elikagai** kopuru hau hartzen zuen egunero: hogeita hamar anega irin garbi eta beste hirurogei irin arrunt; hamar idi gizen, hogei idi larreko eta ehun ardi; eta, gainera, oreinak, basahuntzak, orkatzak eta guritutako hegaztiak. Jose Antonio Mujika

Bularra ez da **elikagai** iturri bakarrik; maitasun, berotasun, babes eta segurtasun iturri ere bada. Luis Elberdin

Gure erregai-sistemak oso **elikagai**-aukera handia onartzen duela. Irene Aldasoro

Itsasoan bizi diren izaki zelulabakarrak dira animalia sinpleenak; itsasoak **elikagai**-erreserba amaigabeak ditu eta zaborra ere erraz eramaten du. Irene Aldasoro

Zirkulazioaren parte batek gibelera eramaten ditu digestio-hoditik xurgaturiko **elikagai** molekulak, gibela baita prozesagune nagusia **elikagaiak** deskonposatu eta eraldatzeko. Irene Aldasoro

Gizaki guztien **elikagai**-nahia giza urdailaren neurri txikiak mugatzen du. Iñaki Heras

Zamaketari zikinduak, zamarra koipez lohi zutenak sorbaldan garraiatutako **elikagai** kargarengatik, gizagaixo zarpailtsuak. Karlos Zabala

Hegoaldean, Asian bereziki, **elikagai**-buruaskitasunaren alorrean egin diren aurrerapenak erantsi behar zaizkio Iparreko eskariaren asetasunari. Koro Navarro

Nazio Batuen Munduko **Elikagai** Programak, atzo bidali genuen lehenengo konboia Gonaivesko hirira, 40 tona janarirekin. Berria - Mundua

4 irud/hed

Aurki etsi nuen horretaz, neure gelazuloa arraz arra arakaturik, zeren aurreko urte haietan **elikagai** izan nituen eleberriak ihesaldi miragarriz beterik baitzeuden. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adina elikagai (5); **behar adina elikagai** (4); **da elikagai** (4); **dira elikagai** (6); **diren elikagai** (4); **du elikagai** (3); **dute elikagai** (3); **elikagai asko** (3); **elikagai bakarra** (7); **elikagai behar** (4); **elikagai edo** (3); **elikagai enpresa** (4); **elikagai enpresa publikoa** (4); **elikagai eta** (11); **elikagai ez** (4); **elikagai faltan** (3); **elikagai freskoak** (4); **elikagai gehiago** (5); **elikagai gehienak** (3); **elikagai horiek** (6); **elikagai izango** (3); **elikagai katearen** (3); **elikagai nagusia** (3); **elikagai programak** (7); **elikagai programaren** (4); **elikagai transgenikoei** (3); **elikagai transgenikoen** (5); **ere elikagai** (3); **eta elikagai** (24); **eta elikagai gehiago** (3); **eta hainbat elikagai** (3); **gero eta elikagai** (4); **hainbat elikagai** (3); **munduko elikagai** (13); **munduko elikagai programak** (6); **munduko elikagai programaren** (4); **sme elikagai** (5); **sme elikagai enpresa** (4); **tona elikagai** (7); **zenbait elikagai** (3)

batuetako elikagaiak eta (6); **botikak eta elikagaiak** (3); **da elikagaiak** (5); **dituzten elikagaiak** (5); **duten elikagaiak** (3); **elikagaia eta** (5); **elikagaiak biltzen** (3); **elikagaiak eskuratzeko** (5); **elikagaiak eta** (30); **elikagaiak eta botikak** (11); **elikagaiak eta sendagaiak** (5); **elikagaiak hartzen** (4); **estatu batuetako elikagaiak** (6); **eta elikagaia** (5), batuetako elikagaiak (6); **eta elikagaiak** (23); **oinarrizko elikagaiak** (3); **ura eta elikagaiak** (3)

batasuneko elikagaien (3); **batasuneko elikagaien kateko** (3); **batzordeak eta elikagaien** (3); **elikagaien bidez** (3); **elikagaien eta** (5); **elikagaien industria** (4); **elikagaien industriak** (3); **elikagaien industrian** (4); **elikagaien inguruko** (4); **elikagaien kalitatea** (8); **elikagaien kateko** (5); **elikagaien munduko** (6); **elikagaien munduko programak** (6); **elikagaien programak** (4); **elikagaien segurtasuna** (4); **elikagaien segurtasunaren** (4); **elikagaien segurtasunerako** (3); **elikagaien sektorean** (4); **elikagaien truke** (13); **elikagaien truke programan** (4); **eta elikagaien** (17); **eta elikagaien munduko** (3); **europako batasuneko elikagaien** (3); **munduko elikagaien** (5); **munduko elikagaien programak** (4); **nberen petrolioa elikagaien** (3); **nekazaritza elikagaien** (5); **nekazaritzarako elikagaien** (4); **oinarrizko elikagaien** (3); **petrolioa elikagaien** (11); **petrolioa elikagaien truke** (11)

elikagairik eta (3); **elikagairik ez** (4); **elikagairik gabe** (6); **oinarrizko elikagairik** (3); **oinarrizko elikagairik gabe** (3)

---

elikagailu *iz* elikatzen duen tresna.

Moldiztegi modernoa, ertaina, zilindroez, Kelley-ez, Miller **elikagailuez**, prentsa txikiez, linotipo-makinez eta koadernatze-tailer oso batez hornitua... Lopez de Arana

Paraje haietan ezkutuko grinek pertsonen bizia ditek **elikagai**, haien barruan ezkutatzen dituk, tifoiak zingiren, mendien eta basoen atzean ezkutatzen diren bezala. Xabier Olarra

---

elikagarri 1 *izond* elikatzen duena.

Ura eta gai **elikagarriak**. Jon Muñoz

Salda **elikagarri** bat da itsasoa: gau eta egun eskaintzen du elikadura, eta isil-isilik eramaten ditu hondakinak. Irene Aldasoro

Agian zuku horren eragin **elikagarriaz** bizi da. Edorta Jimenez

Ez naiz edale amorratua, baina gizon baten bizitzan, une batzuetan, janaria baino **elikagarriagoa** izaten da alkohola. Oskar Arana

Nahiz eta adituek esan azukre-erremolatxak alimentu gehiago daukala eta **elikagarriagoa** dela. Urtzi Urrutikoetxea

Lehen errainuen hatz-muturrak piramideen erpinetan zauritzen dira, eta argizko odola ertzetan behera dator, urrezko esne **elikagarri** gisa irristatuz eta bizi-gogo bihurtuz. Juan Kruz Igerabide

2 irud/hed

Espekulaziozko jokamoldeak sustatzen dituzte, etorkizunari buruzko ziurgabetasun horretaz elikatzen baitira jokamolde horiek, eta aldi berean berak ere ziurgabetasun horren **elikagarri** dira. Koro Navarro

---

elikakate *iz* elikadura katea.

Espezieen arteko lotura estuek, **elikakateak** esaterako, eraginaren efektua zabaldu egiten dute. Berria - Gaiak

---

elikapen *iz* elikatzea.

Ordukoak dira, besteak beste, *Antropologoa hirian, Bilbon* (1987), *Etnografiazko galdeketa* ***elikapenaz*** (1988) eta *Antropologia berria.* Berria - Kultura

---

elikarazi, elikaraz, elikarazten du *ad* elikatzera behartu.

Niri zegokidan orain haien erauzkinak egin, untxiak haietaz **elikarazi** eta haien gluzemia kontrolatzea. Juan Garzia

---

elikatu, elika, elikatzen **1** da *ad* bizitzeko behar diren gaiak hartu edo eman. ik**bazkatu; jan**[1].

Ez da arriskurik, esango zaigu, beti **elikatu** izan garelako gureak ez bezalako geneak dituzten animaliak nahiz landareak janez. Pello Salaburu

Perrexila autotrofoa da, baratzean daukan hartaz **elikatzen** da, dagoen-dagoenean. Edorta Agirre

Hango belarrak neurriz kanpo handitzen dira, metaturiko humusaz **elikaturik**. Karlos Zabala

Ardikiz **elikatzen** zarete, artilez janzten eta arkumerik ederrenak hiltzen dituzue, baina ez duzue artaldea zaintzen. Elizen arteko biblia

Norberaren etxeko kutuna (txakurra eta katua, gehienbat, pentsu ekologiko eta bio-okelaz **elikatuak** eta, beraz, ia gizaki bihurtuak). Edorta Agirre

Banpiro gisako batzuk omen dira, gizonak lotan dauden bitartean haien arnasatik **elikatzen** omen dira, eta itxura denez, horrez gainera ura eta esnea baizik ez omen dute edaten, eta gainerako elikagairik ukitu ere ez. Josu Zabaleta

Hortik atera dezakezu gauza bakoitza bere materiatik hazten eta **elikatzen** dela. Xabier Amuriza

Hor duzu apostolu erlijioso eta laiko handi horien kasua ere; haragi taupakariz **elikatu** ordez ogiz **elikatzen** diren arranoak dira, otso begetarianoak dira. Josu Zabaleta

Gorputz-adarrak ez badira lurreko janariekin **elikatzen**, ahuldu egiten dira eta lur-elementurik gabe geratzen dira osaeran. Santiago Iruretagoiena

Labur esanda, ez da **elikatzen** batere zaila. Itziar Otegi

• **2** du *ad*

Berak **elikatu** zuen eta bere etxean hazi, seme-alabekin batera. Elizen arteko biblia

Atenasko lege batek pobrezia gorrian eroritako gurasoak **elikatzera** behartzen zituen seme-alabak. Iñaki Iñurrieta

Lege naturalak bere haurrak **elikatzeko** agintzen dio aitari, baina ez bere oinordeko egiteko. Iñaki Iñurrieta

Gorputza janak **elikatzen** eta hazten baitu. Xabier Amuriza

Lau dira, lau besterik ez, izakiak **elikatzen** dituzten elementu horiek. Josu Zabaleta

Gariak gizona **elikatzen** du, baina gizonak, aldi berean, garia salbatzen du, haren hazia biltegian gordez. Josu Zabaleta

Janaria zain guztietan zehar banatzen da eta gorputzaren alderik bazterrenak **elikatzen** eta handitzen ditu, baita atzazalak ere. Xabier Amuriza

Abereak pentsu transgenikoekin **elikatu** arren, ez dago horien arrastorik ez haragian, ez esnean. Berria - Euskal Herria

Egun badago planeta osoko populazio guztia **elikatzeko** adina janari: ondo banatzean datza gakoa. Edorta Agirre

Ez irakurri alemaniar metafisikari horiek; horien filosofia mozkortu bai baina **elikatzen** ez duen alkohol bat bezala da. Josu Zabaleta

Ez nuen imajinatzen nire gorputzak esnerik egin zezakeenik hilda zegoen hiru hilabeteko fetu bat **elikatzeko**. Joseba Urteaga

Egunero hiru aldiz **elikatzen** dute, zainen bidez. Gotzon Garate

3 irud/hed

Haren politika harropuzkeriaz eta ipuin sinestezinez **elikatzen** zen. Karlos Zabala

-Erdi alemana izan edo ez, Oskar, ezin haiz musikaz bakarrik **elikatu**. Alberto Ladron Arana

Espekulaziozko jokamoldeak sustatzen dituzte, etorkizunari buruzko ziurgabetasun horretaz **elikatzen** baitira jokamolde horiek. Koro Navarro

Nire kideen bikaintasunaz **elikatzen** naiz ni, Nire kideen bikaintasunaz **elikatzen** naiz ni, bere buruaren berri ez daki, ordea, bikaintasun horrek. Josu Zabaleta

Adin eta sexu guztietako atseginzaleok, zuei eskaintzen dizuet lan hau: **elika** zaitezte hemengo irizpideez, zuen irriken alde mintzo baitira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Buru-argia jakintzaren bila ibiltzen da, burugabea zentzugabekeriaz **elikatzen**. Elizen arteko biblia

Arte eta letra guztien ezagutzarekin **elikatuz** azkenean arkitekturako tenpluaren gailurrera iristen den arte. Santiago Iruretagoiena

Poesia irakurtzeak **elikatu** zaitu baina ez duzu poesiarik idatzi. Ana Urkiza

Ezberdintasun egoera hori da emakumeen kontrako indarkeria **elikatzen** duena. Berria - Euskal Herria

Diru-agintariek erasotako parekotasuna aldezteko egindako ahaleginak, izan ere, espekulazioa **elikatzen** du, espekulatzaileak dibisak merke erosten jarrai bailezake. Koro Navarro

Gizakion zoriontasunak **elikatzen** du Munduaren Arima. Xabier Aranburu

Jasankortasunean hazi naiz, nolabait esatearren; jasankortasunak hezi nau, jasankortasunak **elikatu** nau, esan nezake hezur-haragizko jasankortasuna bera nauzula. Jose Morales

Prozesu hau -bere burua **elikatzeko** joera duena-, nazio bakoitzaren barruan, finantza-erakundeen arteko konkurrentzia- liberalizazioan datza. Koro Navarro

Komunikabideen aldetik «morboa **elikatu**» izana kaltegarria izan bada ere, Etxeburuak gehitu zuen hedabideei aitortu behar zaiela «ezkutuan zegoena» agerian uzteko izan duten gaitasuna. Berria - Euskal Herria

Elkar **elikatu** zutela? Seguru asko, bai. Berria - Kultura

4 (adizlagunenkin eskuinean)

Lehen urratsa eria ondo **elikatuta** edukitzea da, eta ondo hidratatuta. Berria - Gaiak

OMEren arabera, pisu egokia mantentzea, ondo **elikatzea** eta ariketa fisikoa egitea ezinbestekoak dira, diabetesa garatzea saihesteko. Berria - Gaiak

Inbasioa luzatzen ari da, gizonezkoak Alemaniara eramaten dituzte lanera, haurrak gaixotu egiten dira edo gaizki **elikatuta** daude, jantziak eta oinetakoak hondatuta ditu jende guztiak. Josu Zabaleta

Gaizki **elikaturik** izatea (% 14) eta ur zikinak edatea (% 6) dira halako gaixotasunak bultzatzen dituzten arrazoi nagusiak. Pello Salaburu

Bihotzeko arazo gehienak tabakoa erretzearekin, ariketa fisikorik ez egitearekin eta txarto **elikatzearekin** lotu zituen Mackayk. Berria - Gaiak

Gatazka etengabe **elikatzen** duten faktoreak era adostu batean gainditzea parametro demokratikoetan. Berria - Euskal Herria

Nola **elika** genitzake milioika lagun baratze txikien araberako irizpide erromantikoekin? Berria - Gaiak

Osteozitoak egoki **elikatzea** garrantzitsua da, beraz, hezurraren osasunerako. Irene Aldasoro

Gehiegi **elikaturiko** animaliek pubertaroa abiarazten duten hormona gehiago sortzen dituzten ikusi nahi zuten. Berria - Gaiak

Hortik aurrera subjektuak topatzen dituen irudiek dialektikoki **elikatzen** dute haren iruditeria. Josu Zabaleta

Bloga nahitaez **elikatu** behar den zerbait dela onartu du. Berria - Harian

Urri **elikatuta** umeek gaitzen aurrean arazo handiagoak izaten dituzte. Berria - Gaiak

Gose greban diren presoak aulkietan lotuta dauzkate luzaro, indarrez **elikatzeko**. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elikatu ahal (4); **elikatu ahal izateko** (4); **elikatu baino** (3); **elikatu baino ez** (3); **elikatu behar** (7); **elikatu beharko** (3); **elikatu da** (4); **elikatu den** (3); **elikatu egiten** (3); **elikatu ere** (3); **elikatu eta** (10); **elikatu gabe** (3); **elikatu nahi** (4); **elikatu zuen** (6); **elikatu zuten** (3); **elikatuko da** (3); **ere elikatu** (4); **eta elikatu** (7); **gaizki elikatuta** (3); **gatazka elikatu** (3); **ondo elikatuta** (3)

animaliak elikatzeko (3); **baten bidez elikatzen** (3); **bera elikatzen** (3); **berriekin elikatzea** (3); **bidez elikatzen** (6); **bidez elikatzen dute** (4); **bortxaz elikatzea** (3); **buruaz elikatzen** (3); **da elikatzen** (3); **elikatzea eta** (4); **elikatzeko erabiltzen** (6); **elikatzeko eta** (8); **elikatzen ari** (4); **elikatzen baitira** (3); **elikatzen da** (16); **elikatzen dela** (5); **elikatzen den** (13); **elikatzen dira** (15); **elikatzen diren** (11); **elikatzen direnak** (3); **elikatzen ditu** (4); **elikatzen dituzte** (4); **elikatzen dituzten** (3); **elikatzen du** (9); **elikatzen duen** (6); **elikatzen dute** (13); **elikatzen duten** (6); **elikatzen dutenak** (3); **elikatzen eta** (7); **elikatzen eta hazten** (3); **elikatzen ez** (3); **elikatzen gara** (7); **elikatzen zen** (9); **elikatzen ziren** (4); **elikatzen zituen** (4); **elikatzen zuen** (5); **eraso berriekin elikatzea** (3); **eta elikatzeko** (3); **eta elikatzen** (9); **fruituez elikatzen** (3); **gaizki elikatzen** (6); **hori elikatzen** (5); **indarrez elikatzea** (3); **indarrez elikatzeko** (3)

---

elikatzaile *izond/iz* elikatzen duena.

Eneastarren ama, gizakien eta jainkoen gozotasun, Venus **elikatzaile**, ortziko zeinu lerrakorren azpian, itsaso ontzitsua eta lehor fruitutsua hanpatzen dituzuna! Xabier Amuriza

Zerua da guztion aita eta ama lur **elikatzailea**. Xabier Amuriza

Hori gutxi balitz, latinez lanketa filosofikorik ezak sortzen zizkion zailtasunak gehitu behar dira: terminologia finkaturik ez, buruera asmatzailerik ez, zeintzuetan hizkuntza aurretik doan, izaera **elikatzailea** daukan. zerua da guztion aita eta ama lur **elikatzailea**, handik isuritako ur tantak hartzean ernaldua, uzta gardenez, zuhaitz mardulez eta gizakumez erditzen da, piztien enda guztiez erditzen da, denei eskuratzen baitie gorputzak bazkatzeko. Xabier Amuriza

---

elikatze **1** *iz* bizitzeko behar diren gaiak hartzea edo ematea.

Turisten **elikatze** bizkorrerako dauden ehundaka establezimenduen artean bat gehiago. Iban Zaldua

Gozotegiek eta txarkuteriek, adiera zabalean, geroz eta litxarreria (bai *fast food* moduko zabor sasi-jangarriak, baita *delicatessen* plegukoak ere) gehiago ekoitziko dituzte, orduz kanpoko **elikatze** mugagabe horri erantzun oparoa emateko. Edorta Agirre

Orain arte **elikatzea** antolamendu sozialaren helburu behinena izan bada ere (gizakiak elkartu, elikagai bila jardun, etsaiari jana lapurtu, etc.), aurrerantzean, gizakiari zor zaion eskubidetzat hartuko da. Edorta Agirre

Geroaldian, baina, ez dira aintzat hartuko **elikatzearen** elementuak, atalak eta osagaiak. Edorta Agirre

Animalia handiagoak eta konplikatuagoak garatu ahala, larriagotu egin zen **elikatzearen** arazoa. Irene Aldasoro

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizabanakoaren gorputzean badira, alde batetik, xede berezia duten atal batzuk: batzuek **elikatze**-organoen antzera, banakoaren kontserbazioa dute helburu; beste batzuek, hala nola ugaltzeko organoek, espeziearen irautea. Xabier Kintana

Orain, haurtzarotik gozokia sartzen da **elikatze** sisteman. Berria - Euskal Herria

Elikatze fenomenoa kinka larrian jarriko duten sei prozesuak. Edorta Agirre

Egun, merkatua mundializatzeak eta populazioak elkarrekin nahasteak [...] elikagaien eta kuzinatzeko tekniken elkar trukaketa areagotzen lagundu dute, **elikatze**-ereduen mestizaiaren eragile eta parte hartzaile diren aldetik. Edorta Agirre

Landare mundua izango da gehien ugaldu edo zabalduko dena, zapore-usainetan oparoena [...] eta, ekonomia aldetik, merkeena izateaz gainera, etorkizuneko **elikatze**-moldeari zehazkien egokituko zaiona delako. Edorta Agirre

Hauxe da Mendebaldean edo lehen munduan, oro har, aurki jeneralizatuko den **elikatze** estiloa. Edorta Agirre

Orduz kanpoko "ezinbesteko" **elikatze**-azturak. Edorta Agirre

---

elikatzearren *iz* elikatzeko.

Zuen gorputza **elikatzearren** ahoratzen duzuen guztia kendu eta hondarrak emango dizkizuete. Anton Garikano

---

elikoptera ik **helikoptero**.

---

elikoptero ik **helikoptero**.

---

eliminatibismo *iz* teoriak postulatzen dituen objektu matematikoak baztertzea edo eliminatzea proposatzen duen jarrera.

Eliminatibismoa: Mundua egoera fisikoen multzoa da. Askoren artean

Posizio positibista edo naturalista hori **eliminatibismoa** da, eta gogorik ez dela dio. Askoren artean

Eliminatibismoaren tesi nagusia, ordea, ontologikoa da: gogoa ez da existitzen. Askoren artean

Komeni da argi izatea **eliminatibismoa** ez dela eguneroko bizimoduaz ari (jakina, eguneroko hizkera arruntean jarrai daiteke minaz, beldurraz, desioez eta abarrez hitz egiten), baizik eta psikologiaz. **Eliminatibismoaren** jatorrian 1930eko hamarkadan sortutako Positibismo Logikoa jarri behar da. Askoren artean

Eliminatibismoaren tesi nagusia, ordea, ontologikoa da: gogoa ez da existitzen. Askoren artean

Idealismoaz, dualismoaz, **eliminatibismoaz**, identitatearen teoriaz eta, batez ere, funtzionalismoaz eta horren garapenaz arituko gara. Askoren artean

---

eliminatibista *izond/iz* eliminatibismoarena, eliminatibismoari dagokiona, eliminatibismoaren jarraitzailea.

Materialista da, alabaina ez **eliminatibista**. Askoren artean

Eliminatibisten ustez gogoa burmuinera erabat murrizgarria da. Askoren artean

---

eliminatu, elimina, eliminatzen du *ad* kendu, ezabatu, kanporatu, baztertu.

Rortyk Ilustrazioaren liberalismoa salbatzeko, haren razionalismoa **eliminatzea** proposatzen du, pragmatista ilustratu gisa jarraitu ahal izateko. Joxe Azurmendi

Gerta daiteke demokraziaren izenean espazio desberdinen autonomia **eliminatua** izatea, printzipio bateratzaileak desberdintasun guztiak bere barneko memento izatera murriztuz gero. Joseba Zulaika

Hildako zelulak **eliminatzeko** exfoliantea. Jasone Osoro

Guk asko jaten baditugu, gorputzean pilatu ditzakegu gaiok, eta kostata **eliminatzen** ditugu. Berria - Gaiak

Kosovon dirutza gastatu zuten beharrezkoak ez ziren ehunka tona botika **eliminatzeko**. Berria - Harian

Gure denboran, legearen kontrako ekintza bat politikoki justifikatzen da, etsaiaren fisikoki kalitzea eta **eliminatzea** baldin badakar ere. Itxaro Borda

Ahulenak **eliminatu** baino, tokia libratzea da helburua, ezarritako kopurua errespetatuz. Pablo Sastre

---

eliminazio *iz* kentzea, ezabatzea, kanporatzea, baztertzea.

Nolabait **"eliminazioz"** jokatzen da. Lourdes Oñederra

Estatuaren **eliminazioa** eskatzen zuen anarkisten posturara iritsi gabe, baina ETAk hainbeste eragozpen jartzen dizkio Estatuari, ezen gaizki ulertua ez izateko erantsi beharrean sentitzen baita. Joseba Zulaika

Etsai guztien **eliminazio** fisikoa planifikatzen zuen egitura totalitarioak. Itxaro Borda

Lau urtetik behin, beste "mirari" batekin agertzen dira -lehenbizi **eliminazio**-dietak izan ziren, gero magnesioa eta B6 bitamina [...]; orain, esate baterako, entzumenaren sentiberatasuna kentzea eta tresnaz lagundutako komunikazioa daude boladan. Xabier Olarra

Auto-**eliminazio** ekintza ero batean, berea zuen guztia entregatu zuen: gola egiteko ahalmena, irabaztekoa, bere jarraitzaileen desirari helburu lortuaren estasia ekartzekoa. Joseba Zulaika

---

elipse *iz* lerro kurbatu itxia, bi simetria ardatz dituena, barneko bi puntu finkoetarako distantzien batura bera duten puntuek osatua.

Lerro zuzenak eta makotuak, parabolak eta **elipseak**. Imanol Zurutuza

Lau irudi desberdin; batetik, **elipsea** eta zirkulua: biak, itxiak. [...]. Jon Muñoz

Hexagonoa edozein konikotan inskribatuta egonda ere hori egia dela frogatu zian Blaise Pascalek: **elipsea**, parabola, hiperbolea...! hark irakatsi zidan nola egiten zen zirkunferentzia soka batekin, baita **elipse** bat ere soka bat eta bi iltzerekin. Jon Muñoz

Planetak ez ziren zirkuluak eginez higitzen, **elipseak** eginez baizik. Jon Muñoz

Luzatu, eta, halako batean, hautsi egin zen **elipsea**. Jon Muñoz

Emakumeak **elipse** moduko bat marraztu du airean. Monika Etxebarria

Airean **elipse** traketsak marraztu eta gero lurreratzen ziren, koreografia anonimo baten partaide zirenik ohartu gabe. Joxean Agirre

Nik disimulurik gabe begiratzen nion, oinez ibiltzeari utzi gabe soaren **elipse** osoan. Harkaitz Cano

Elipse formako orbita horretan, Ilargiaren azaletik 300 kilometrora hurbilduko da Smart-1. Berria - Gaiak

---

elipsi 1 *iz* gramatikan, hitz isiltzea, esaldia ulertzea galarazten ez duten osagai bat edo gehiago ezabatzea.

Horretarako, **elipsira** jotzen du sarritan, hizkuntzaren ekonomiara. Koro Navarro

Literaturan funtsezkoak dira **elipsiak** irakurlearen irudimenaren ateak aske uzteko. Berria - Kultura

Elipsiaren umorea nagusitu da, hitz-jarioarena baino gehiago. Berria - Euskal Herria

Kontatzeko moduari dagokionez, **«elipsiaren** erabilera bikaina» nabarmendu zuen Elorriagak: «Parte asko falta dira nobelan, baina hain ondo idazten ditu idazten dituen parteak, **elipsiak** osatzea ez dela hain zaila». Berria - Kultura

Elipsiak islatzen du hobekien munduaren konplexutasuna. Berria - Kultura

Literarioak izan ez arren, funtzionatzen duten **elipsiak**: idazleak, **elipsiaren** hutsunearekin, informazioz bete nahi du testua; telebistak, **elipsiaren** hutsunearekin, hutsunea sortu nahi du. Berria - Kultura

Idazkera trinkoa, guztiz soildua, **elipsiz** betea, aszetikoa, ez dakit zergatik, baina moralisten artean estimazio berezia izan ohi duena. Josu Zabaleta

Ametsek hautsia omen dute beren estruktura narratzailea; jauzika eta **elipsi** sekulakoak eginez ibiltzen omen dute beren bide laburra. Anjel Lertxundi

Hortxe bizi gara, **elipsi** handi batean, albisteen gortinen artetik kuxkuxean aritzera kondenatuta, gortina horien atzean behingoagatik informazio aletxoren bat ikusteko edo, hobeto esanda, imajinatzeko esperantzarekin. Berria - Kultura

Metafora on batek, edo **elipsiak**, edo konparazio batek erretrata ditzakete gure barneko misterioak. Ana Urkiza

Neska haurdun zegoela konturatzen zenetik haurrik gabe geratzen zen arte, **elipsi** bat zegoen. Joseba Urteaga

Egoera sinesgarri hori lortuz gero, hainbat teknikaz baliatzea, **elipsiaz** agian, iragarpena, gaztigua hitzik gabe emateko, baina, aldi berean, abisua ematen ari garela interesatuari eta, baita ere irakurleari oso garbi uzteko. Jon Alonso

Elipsi honek nahiko denbora eskaini beharko luke nahi den informazio guztia trukatzeko, baina, aldi berean informazioa ez da agerian gelditzen, edonolakoa izan liteke. Jon Alonso

Entzunaz gozatu eta gozatuz ikas dezakete gaztetxoek **elipsiaren** berri, beraiek antzekotasunez tankerako zerbait saiatzea dutelarik jomuga. Andoni Egaña

Elipsi zinematografikoaren aferak. Aingeru Epaltza

Antz sinestezina dute **elipsiak** eta izotzaren transparentziak. Anjel Lertxundi

2 irud/hed

Oraingoan, berriz, 25 urteko **elipsi** luze baten ondoren, langile haien bizitzak zer bilakatu diren aurkezten digu Jordák. Berria - Kultura

---

elipsoidal *iz* ebakidura plano guztiak zirkuluak eta elipseak dituen solidoaren forma duena.

Txinka frenetiko eta metalikoak entzuten nituen, makina borobil **elipsoidalaren** zurubi hidraulikoa jaisten ikusi nuen eta zola kixkailduan pausatzen: gizaki orlegi arin bat emeki-emeki jaitsi zen. Itxaro Borda

---

eliptiko 1 *izond* elipseari dagokiona; elipse forma edo itxura duena.

Figura **eliptiko** eta espiralak izango ditu Serraren obrak, altzairuz eginak eta lau metroko altuerakoak. Berria - Kultura

Zeru gorputz bati planeta deitzen diogu, iluna izanda, Eguzkiaren inguruan orbita **eliptikoan** higitzen baldin bada. Berria - Gaiak

Baloiaren itinerarioa miresten zuen, harik eta pilota nonbait erortzen zen arte, patioan bertan txut bertikalarekin, edo lkastetxeko teilaturen batean edo lekutako orturen batean

txut **eliptikoagoekin**. Joseba Sarrionandia

Zeru gorputz bati planeta deitzen diogu, iluna izanda, Eguzkiaren inguruan orbita **eliptikoan** higitzen baldin bada. Berria - Gaiak

Familiak Bilboko Plaza **Eliptikoan** zuen bizilekua. Patxi Iturritegi

Gehry-ren museoa da orain erreferentea, eta bertan Serraren tortsio **eliptikoak** dira ikusgai nagusi. Joseba Zulaika

Kokaleku gehienak, antza, sakonune biribil edo **eliptikoak** dira, baina badira batzuk konplikatuagoak. Irene Aldasoro

Atondo **eliptiko** erraldoiko mosaikoaren gainean ipini zuen laukoteak aulki gurpilduna. Jon Muñoz

2 elipsiari dagokiona.

Litekeena da esatea aurkezteko artifizio bat besterik ez dela, enuntziatu hau esaldi **eliptiko** bat dela, laburtua, ezohiko samarra den era batean espazializatua. Xabier Arregi

Eleberriak biziraungo badu **eliptikoa** izan behar duela ziurtatzen du Harold Bloom-ek *El futuro de la imaginacion* lanean elipsia harentzat jakituria da. Berria - Kultura

Hasperen **eliptiko** bat egin zuen, jakin-minez. Unai Elorriaga

Kokaleku gehienak, antza, sakonune biribil edo **eliptikoak** dira, baina badira batzuk konplikatuagoak. Irene Aldasoro

---

elisio *iz* hitz baten azken bokala ezabatzea.

Hasperenduaren aurrean ez lotura ezta **elisioa** ere ez da egiten. Isabel Arrigain

Baina gaur egun formula honek ez du zentzurik, hasperendurik ez baita dagoeneko, hots bat ez den, eta bere aurrean loturarik ez **elisiorik** sortzen ez duen hori horrela izendatzen ez badugu, behintzat. Isabel Arrigain

---

elite **1** *iz* gutxiengo hauta.

Elite batek hasiko du lana. Piarres Aintziart

Hierarkia garbi bat ezarrita dagoen tokian aski izaten baita **eliteak** hizkuntza aldatzea menpekoek ere gauza bera egiteko, luze gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Aristokraziak, **eliteak**, lanbide taldeak urturik zeuden jendetza epel hartan. Monika Etxebarria

Ideologia erlijioso baten alde, munduan zehar gainera, lan egingo zutenen **eliteak** formatzea zuen helburu nagusia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Garatzeko bidean diren herrialdeetan ere ez al du teknologiak **elitearen** eta herri xehearen arteko desoreka areagotuko? Berria - Harian

Agintzea ez da **elitearen** eskubide bat, haien betebehar behinena baizik. Monika Etxebarria

Jakintza demokratizatu da, eta horrek gizartea aldatu du, lehen **eliteak** zirenak masa bihurtu ditu. Berria - Kultura

Gobernu liberalek 1930. eta 1946. urteen artean eginiko lur sail banaketa indarrez desegiten hasi ziren Alderdi Kontserbadorean bilduriko **eliteek** agintera helduta. Berria - Mundua

Talde etniko nagusietatik zetozen pertsonek osatutako **elite** batek agintzen zuen. Berria - Mundua

Ez da **elitearen** eta herriaren arteko borroka: **elitearen** barruko borrokak dira. Berria - Mundua

Herriak dena ongi egin du, esango da oraindik *España invertebrada*-n: arazoa oraindik **eliteen** falta da. Joxe Azurmendi

Konspirazio beharrik ez da, **eliteak** masa-hedabideak nola kontrolatzen dituen azaltzeko, oso prozesu naturalak baitira horiek. Txema Ramirez de la Piscina

Erdi Aroko eta Berpizkundeko europar bankarien **eliteari** askoz ere mozkin-aukera erakargarriagoak eskaintzen zizkieten estatuen finantzaketa-premiek ohiko jarduerek baino. Koro Navarro

Hoteltxo dotore eta lasaia zen, futbolariak eta boxealariak, gure garaietako **elitea**, bizi ohi diren horietakoa. Matías Mujika

Masaren -demokraziaren- gutxiespena, destaina ez esateko, eta **eliteen** goratzapena, intelektual kritikoen artean franko zabaldua zegoen. Joxe Azurmendi

Hegazkin pilotua da bera, baina ez nolanahikoa, **eliteko** pilotua baizik. Joxerra Garzia

Eliteko soldaduak, haien itxurari eta lerdentasunari erreparatuta ondorioztatu nuenez. Jon Muñoz

Eliteko atletak nahi badituzu babesle sendo bat behar duzu. Berria - Kirola

Ohore, beraz, **eliteko** kirolariei, haiena izango da-eta ospearen zeru gozo itzaltsua. Joxerra Garzia

Jean Espilondo deputatuak galdatu du publikoki antola dadin mahai inguru bat Hormadi-ko **eliteko** krisiaz hitz egiteko eta aterabide egokienen aurkitzen laguntzeko. Herria

Eliteko unibertsitateak eratzeko. Berria - Mundua

G. Vacher de Lapouge-rentzat [...] **eliteko** arraza, dominatzaile eta kreatiboa ("homo europaeus") nordikoa da. Joxe Azurmendi

Disuasiorako Poliziaren **elitezko** unitateko orain arteko arduraduna. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Segundo batez **elite** burgesaren aginterako eskubidea bera ere zalantzan jartzen zen. Monika Etxebarria

Berdin gertatzen da masa-hedabideekin: **elite** ekonomiko eta politikoaren zati bilakatu dira. Txema Ramirez de la Piscina

Maimon pentsamenduzko aristokrata bat da, **elite** intelektualak masekiko duen erantzukizunean sinesten duena. Xabier Kintana

Honelako eskari bat Mendebaldeko **elite** sofistikatuari erabat zentzugabea irudituko litzaioke. Iñaki Mendiguren

Elite ustelduen borroka. Berria - Mundua

Alta, **elite** bikainak, arraza bikainetan ematen dira. Joxe Azurmendi

Jende espainola da masa malapartatu bat, egonda ere **elite** gidaririk onartzen ez duena. Joxe Azurmendi

Berak **elite** buruzagientzat galdegiten duen goratasun intelektual, moral edo politikoa, arrazak ematen du. Joxe Azurmendi

Britainiar Inperioak indiar **elitea** erabili zuen, otomandar padishak Ekialdeko **elite** kristau ortodoxoa erabili zuen bezala. Iñaki Mendiguren

Hauek egiazko **eliteak** ziren, nor bere eremuan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egungo **elite**-jakiak "arrunt" bilakatuko dira, ekoizpen biderkatzaileari esker. Edorta Agirre

Botere ororen izaera aristokratikoa ezagutzeko aukera eskaintzen digu Homerok, **elite**-teoria garaikideak sortu baino askoz lehenago. Askoren artean

Iazko Munduko Txapelketako proba nagusian, gizonezkoen **elite** mailan, lehen bostak belgikarrak izan ziren. Berria - Kirola

AEBetako Armadako **elite** unitate honetako eledun Dan McSweeney kapitainak. Berria - Mundua

Lau t'erdiaren barnean, **Elite** Txapelketako finala jokatuko du, Lasa urretxuarraren aurka. Berria - Kirola

Mikel Gonzalezek eta Aritz Lasak lau t'erdiko **Elite** torneoko finala jokatuko dute gaur. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oinarrizko errenta eta interes soziala enpresa-**eliteen** edo elite sozialen interesen gainetik jartzea. Berria - Euskal Herria

Demokrazia bakar-bakarrik buruzagi-**eliteen** eskuetan uzteko garrantzitsuegia dela dioen filosofia izango litzateke demokrazia kontzeptu berriaren euskarria. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da izango eliteko (3); **elite batek** (3); **elite baten** (4); **elite baten esku** (3); **elite eta** (6); **elite mailako** (7); **elite mailan** (9); **elite pelote** (3); **elite pelote basque** (3); **elite politiko** (4); **elite politiko eta** (3); **elite pro** (12); **elite txapelketa** (5); **elite txapelketako** (3); **elite txapelketako finala** (3); **elitearen eta** (4); **eliteko andereñ eliteko atletak** (4); **eliteko atletarik** (6); **eliteko kirolariak** (3); **eliteko pilotua** (3); **erdiko elite** (3); **eta elite** (6); **eta eliteko** (4); **euskadiko elite** (3); **frantziako elite** (3); **izango eliteko** (3); **izango eliteko atletarik** (3); **o** (3); **t erdiko elite** (3)

elitismo *iz* eliteen aldeko joera edo jarrera.

Aristokratismoa, **elitismoa**, komenentzia bat baino gehiago, lege natural bat iruditzen zaio Ortegari. Joxe Azurmendi

Aristotelesek semeari idatzitako testu honetan greziar garaiko sistema politiko eta moralaren ezaugarri nagusiak atzeman ditzakegu (**elitismoa**, esklabotasuna...). Askoren artean

Izan zen Munduko Gizarte Foroa bera kritikatu zuenik ere, «gobernuz kanpoko erakundeen **elitismoa**» salatuta. Berria - Harian

Elitismo halako batez dotoretu nahi ditudala hitza eta sorkuntza zientziaren aurrean? Anjel Lertxundi

Ez nuke **elitismo** kontua denik esango. Ana Urkiza

«**Elitismo**» akusaziopean bildu ziren atzo Berlinen Alemaniako, Frantziako eta Erresuma Batuko gobernuburuak eta arlo sozial nahiz ekonomikoetako ministroak. Berria - Mundua

---

elitista **1** *izond* elitekoa; elitearena.

Posizio baten adierazgarri eta kulturari buruzko ikuspegi **elitista** baten totem bihurtu zaigu liburua. Anjel Lertxundi

Gizartearen eta historiaren teoria **elitista** bat, oligarkikoa. Joxe Azurmendi

Ez dakigu noiz aldatuko duen Frantziak jarrera **elitista** hori. Berria - Euskal Herria

Boterearen izaera **elitista**. Askoren artean

Ez dugu nahi exekutibo **elitistarik**. Berria - Harian

Ez da herritartasunaren zentzu **elitista** halako bat artista eta gainerako herritarrak bereizten dituena. Anjel Lertxundi

Azkenean, unibertsitate **elitistagoa** egin nahi dute. Berria - Harian

Gasnaz bat egin eta gasnari berari entzuten jakiteko apaltasun errepublikarra behar da; ez ordea Frantziako egungo Errepublika **elitista** uniformatzailearena, baizik Donapaleuko azokan gauzatu ezberdintasunen gainetiko elkartasunarena. Markos Zapiain

Hezkuntza masibo eta ez **elitista** horrek eragin positiboa du errenten banaketan. Koro Navarro

Hango argitaletxe populista hartan akademikoegitzat daukate, hemengo **elitista** honetako arduradunentzat, berriz, dibulgaziozkoegia da. Anjel Lertxundi

2 (izan aditzarekin)

Zientzia definizioz da **elitista**. Askoren artean

Horrek ez du esan nahi literatura **elitista** denik. Ana Urkiza

Elitista samarra haizela. Xabier Mendiguren Elizegi

Pixka bat **elitista** da, edo, hobeto esateko, arras **elitista**, baina aukera eskaintzen du egoera askoz apalagoetara ere egokitzeko. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elitista baten** (3)

---

elixir **1** *iz* likore miragarria.

-Nahikoa **elixir** badaukate metatuta beren burubide guztiak ongi antolatuta uzteko eta gero, bai, gero hil egingo dira. Iñaki Mendiguren

"Arraza nordiko" barbaro osasuntsuaren mitoa zabaltzen, bere odolak "gizarte akitu" baten zainetan sartzean gaztetasunaren **elixir** gisara jokatzen duelarik. Iñaki Mendiguren

Biziaren **Elixirra** hartzen dudanean, gai izango naiz gorputz bat sortzeko neuretzat. Iñaki Mendiguren

Kondairak dio kalexka hartan beruna urre bilakatu zela, harri filosofala asmatu zutela, bizitzaren **elixirra** dastatu zela eta norbaitek ilartargi-izpiak pozoitzea ere lortu zuela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baita hain preziaturik zeukaten **elixir** afrodisiakoa ere. Pello Zabala

2 irud/hed

Paper orri batez eta estilografika batez armaturik egongo da, **elixir** horretatik tanta bat ere galtzen ez uzteko. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **biziaren elixirra** (4)

---

eliz ik **eliza** **3**.

---

eliza *(orobat **eliz** g.er. eta **eleiza** g.er.)* **1** *iz* Jesukristoren erlijioari jarraitzen zaizkion sinestunen bilkura; kristautasunaren barnean bereizten diren bilkuretako bakoitza.

Eliza betikotasuna da, sendotasuna. Patziku Perurena

Vatikanoa eta **eliza** bi gauza direla dio Mellek, eta bereizten jakin behar dela. Berria - Gaiak

Frantziskoren jarrera **Elizarekiko**, mendetasunean eta leialtasunean finkatua egon zen beti. Askoren artean

Elizak, eta Ordenak berak, manipulatu eta bere interesetara moldatu zuten Frantzisko eta beronen bizi-proiektua. Askoren artean

Diozesi hitza **Elizak** hartu zuen, baina apezpiku bakar baten eskumenari aplikatu zion. Iñaki Mendiguren

Munduko erresumarik indartsuenetan, hala Espainian nola Frantzian, **eliza** eta estatua hertsiki loturik doaz. Joan Mari Irigoien

Aurkariak berriro eraso eta gure viktoriar gotzainari zera erantzun diezaioke zakar: bere **elizak** laiko horien artetik ez duela onena aukeratu, azken hondarrak baizik. Iñaki Mendiguren

Nahi zuen zuzenbidea bibliaren eta **elizako** aiten iturrietara itzularazi. Piarres Xarriton

Orreagako priore lerdena Salamancara joan zen gero **elizako** eta estatuko legeen ikasketei jarraitzeko. Piarres Xarriton

Eliza, erabakiaren kontra. Berria - Harian

Eta maisu haien bidez ezagutu nituen maisuen maisu ziren **Elizako** jakintsu eta doktoreak. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estatu unibertsalek, **eliza** unibertsalek eta aro heroikoek elkarrekin lotzen dituzte honela zibilizazio garaikideak. Iñaki Mendiguren

Antzinako Erregimeneko gorputz politikoa erregearen buruan bakarrik uztarturikoa birpentsatzean, eredutzat Gorputz Mistiko eliztarra hartu dute, Estatu-Nazioa **Eliza** Nazional bat bihurraraziz. Joxe Azurmendi

Eliza primitiboaren legea eta tradizioa ezkontzaren aurkakoak ziren. Antton Olano

Ratzinger kardinaleak erran du **Eliza** katolikoa zela bakarrik egiazko **Eliza** eta bertzek erran nahi baita protestantek, orthodoxek, anglikanoek izen hori ez dutela merexi. Herria

Erromako **Eliza** saindu eta katoliko bakarraren kide garela. Piarres Xarriton

Kristau-aroko hogeigarren mendean erromatar legearen zuzeneko oinordekoak Ekialdeko Kristau **Eliza** Ortodoxo eta Mendebaldeko Kristau **Eliza** Katolikoaren kanonak ziren. egutegi horri "kalendario juliano" deritza eta egutegi hau da, hain zuzen ere, **eliza** ortodoxoak segitzen duena. Iñaki Mendiguren

Inperioaren helburu unibertsalak bereganatuak zituen **Eliza** erromatarraren laguntzarekin. Askoren artean

Apaiz talde batek **eliza** anglikanoa utzi zuen emazteak ordenatzen hasi zirelarik. Berria - Euskal Herria

Eliza Metodistak apaiz lesbiana bat onartu du lehen aldiz. Berria - Gaiak

Eliza katolikoak manatu lanak egiten nituen: katixima, sakramenduak, elizkizunak. Piarres Aintziart

Santu guztien **Eliza** ilustratua. Joxe Azurmendi

Liburu hori garai batean **Eliza** Anglikanoak biziki estimatu zuen. Xabier Olarra

Doktrina indartsu honen ukazioa da **Eliza** Episkopaldarraren hortzei Neo-hiztegizaleek bota dieten erronkarik handiena. Xabier Olarra

Mugimendu horiek oso klerikalizatua zegoen **Eliza** ofizialarekiko oposizio-karga handia zuten. Askoren artean

Hori da Frantziskoren mugimenduaren ezaugarri nabarmenetako bat, **Eliza** instituzionala baliogabetzen zuten beste hainbat mugimendu ebanjeliko edo kataroak bezalako mugimendu heretikoen aurrez aurre. Askoren artean

Ekialdeko beste **eliza** ortodoxoen -baita Errusiako **elizaren** - buruek. Iñaki Mendiguren

Iragarritako orduan, **Eliza** militantearen lerrotan hain bulartsu zerbitzatu zuenak **Eliza** garailean egin zuen sarrera. Askoren artean

Osiriar **Elizak** sekula ez zuen jazarpenik pairatu eta azkenean gutxiengo menderatzaile egipziakoaren erlijioarekin nahastu zen. Iñaki Mendiguren

Hauxe da, egiaz, bere biziera eta doktrinaz Kristoren **Elizari** eutsiko diona. Askoren artean

Obedientzia eta begirunea hitzematen dizkio Inozentzio Aita santu jaunari eta kanonikoki hautaturiko haren ondorengoei eta Erromako **Elizari**. Askoren artean

Erromako **Eliza** santuaren molde eta legearen arabera. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**eliz**)

Famaren salbatzeko, katedralean **eliza** -laguntzaile zen Arbidetar baten aholkuak jarraituz. aginte zibilaren eta **eliza** -usadioen artean mugak zehaztu nahi direnean, nolako eztabaida azkengabeak! Itxaro Borda

Bederatzi urteetara heldu bezain sarri, izan zuen lehen **eliza** koroa. Piarres Xarriton

1532an, bere mezenasek bultzaturik, bere tituluak baliozkatu zituen, erdietsiz bat bestearen ondotik **Eliza** legeetan batxilergoa, lizentzia eta doktoretza mailak. Piarres Xarriton

Espainiako **Eliza** Konferentziaren jarrera salatu du Gehituk Ez zuten entzuten galde-ihardespenez, ordezkatzez, **eliza** -sariez, kontratuez, patronatuez, salaketez beste solasik. Berria - Euskal Herria

Euskara lapurtarrean idatzitako **eliza** liburuetako ohiturak baizik ez dituzte gogoan. Koldo Zuazo

Erdietsi zituen horrela bi **eliza** errenta bakun, haiei esker ikasketak ordaindu ahal izan baitzituen doktoretza iragan arte. Piarres Xarriton

Turkoen gudu bertsoak; armeniarren **eliza** otoitzak Bere **eliz** gorputza eraikitzean, **Eliza** gizarte-gorputz helenikoaren eta erromatar gorputz politikoaren zelula ziren hiri-estatuez baliatu zen. Felipe Juaristi

Gizarte eta **eliz** giro berriak isla zuzena izango du Frantziskoren bizi-esperientzian. Askoren artean

Johanesek **eliz** ikasketak egin zituen Salamancan. Martin Anso

Hasierako *fraternitas* edo anaiarte xumea Ordena handi bilakatzen ari zen eta **eliz** ordena instituzionalean gero eta integratuagoa zegoen. Askoren artean

Eliza oinarrien kapituluan aipatu ondorioak finkatu bainituen orduan. Piarres Xarriton

Eliz egiturak bizirik iraun ahal izan zuen baliokide sekularra kolapsatu arren. Iñaki Mendiguren

Biblia eta **eliz** tradizioa neurri batean ezagutzeko aukera. Askoren artean

Eliz munduan, eliza ofizialaren eta herri-mugimenduen arteko tirabirak ere gogorrak ziren. Askoren artean

Eliza aitzinean, harriz moldatuzko mosaiko andana batek katedrala, zubia eta monumentuak marrazkitzen ditu. Piarres Aintziart

4 elizkizunetarako bereziki prestatzen den eraikuntza. ik **basilika; katedral; kapera**.

Supermerkatuaren gainean **eliza** bat egin zuten. Juan Kruz Igerabide

Eliza aspaldi desakralizatu zuten, eta orain Iruñeko Udalarena da haren jabetza. Berria - Euskal Herria

«Matxista eta patriarkala» delako, **Eliza** erretzeko mehatxua ere egin zuten. Berria - Harian

Gido izeneko gizon bat limosna ematen ari zitzaien **elizan** zeuden behartsuei. Askoren artean

Frantzisko Asisko San Jorge **Elizako** kalonjeen eskolan ibili zela. Askoren artean

Gizona presaka zihoan Anai txikien **elizara** , ohi bezala arratseko otoitzaren ondoren otoitz egitera. Askoren artean

Hitzok amaitu ondoren, gotzaina bere mintzalekutik jaitsi eta gotzaindegiko **elizan** sartu zen. Askoren artean

Elizkizun hunkigarriak **eliza** kanporaino betea. Herria

Eliza asko oso eraikin politak dira, Varsoviako arkitekturaren parte. Berria - Mundua

Mahaian portzelanazko argi-mutil sail bat dago, **elizakoak** bezalako kandela lodi urdinekin. Xabier Olarra

Florentek entzuten zion, platera mukuru, jangelaren garbitasun **elizakoak** bihotza bereganatzen ziola. Karlos Zabala

Sortzez leitzarra, Marilesakeneko semea, eta apeztuz geroztik Aranoko **elizako** benefiziodun. Patziku Perurena

Hitzok, jakina, **elizakoak** ziren; ez telebistakoak, ez tribuko inorenak. Unai Elorriaga

Jainkoaren **Eliza** pertsegitu bainuen. Elizen arteko biblia

Gurasoak laborariak zituen, "oso zintzoak, langileak eta **elizakoak"** , behin baino gehiagotan errepikatu zidan, "eta pobreak". Iñaki Zabaleta

Kantaldietan, kantu mota frango emaiten ditu, 3 edo 4 bozetan, ohizko kantuak eta oraikoak, **elizakoak** eta plazetakoak. Herria

5 (izenondo eta izenlagunekin)

Gauez leku bakarti eta **eliza** baztertuetara joaten zen otoitz egitera. Askoren artean

Eliza hebraikoa izateko eraikia, orain Zinemaren Museo Nazionala dago bertan. Anjel Lertxundi

Artearen maitaleek badute zer ikusia hemen; haran hauetako **eliza** georgiar ugariak goitik behera aztertzen ibiltzen omen dira. Jon Arretxe

Santamaria la Real aurre-erromaniko estiloko **eliza** sinplea. koruak eta organoak kantaz eta musikaz betetzen zuten **eliza** argitsua. Piarres Aintziart

Eliza erromaniko bat zaharberritzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Geroztik egin den **eliza** gotikoaren kripta da orai. Herria

Urbiaingo **elizaren** aitzinean zelebratu zen juntan. Joan Mari Irigoien

-Ez al zen, bada, gure **eliza** katedral bihurtu? Joan Mari Irigoien

Tellagorri liberala zen, Pitxia karlista; Tellagorrik ez zuen **eliza** zapaltzen, eta Pitxia berriz hantxe zen beti. Koro Navarro

Sekulan ez bezalako argi bat badu gaur, ilargiak, zilarrezkoa, oraintxetan berean, Ermita, Basoi eta mutikoa **elizarakoan** . Michel Oronoz

Beren biltzar nagusia Anhauze **elizako** kalostrapean egin zutela. Michel Oronoz

Adreilu bakar bat ere ez da geratuko zutik **elizan** . Koldo Biguri

Gerran eroritakoen omenezko mezan, **eliza** leporaino beterik zegoen. Koldo Biguri

Santiago Handiaren **elizako** erretaula eta bereziki Apostolu Beltzaren itxura fina ikusi ditut. Piarres Aintziart

Alimaleko **eliza** moderno itsusi bat agertzen da, ezker eta eskuinean landatu etxe ederrek bideari pareta margotsua egiten diotelarik. Piarres Aintziart

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eliza atarian batutako jendearen artean. Hasier Etxeberria

Eliza -atari edo zimiterioetako granito gogorrezko aulki horiek hainbat zulotxo omen dituzte. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eliza zolan, bigarren galerian beste musika tresna bat bazen. Michel Oronoz

Hango ipotx eta elbarrituak, espaloietan pauso geldi-geldian doazen erretiratu zahartuak, hango **eliza** -kanpaiak eta hamar mila txakurrak. Oskar Arana

Karrika kantoi eta ostatu ilunetan jotzetik **eliza** -kaperetan jotzera igaro zen Damián itsua. Felipe Juaristi

Eliza -barne bakar bateko eraikina ezkiladorreak tinkotasunaren bilduma dirudi. Piarres Aintziart

Jende tirokatze, **eliza** eta komentu erretze eta horrelako abrekeria edo basakeria frango. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eliza itxurako eraikin gotiko bat. Ramon Saizarbitoria

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

San Nicolas **eliza** , gaztelu **eliza** . Piarres Aintziart

8 *ama eliza*

Pierre Eyt Bordeleko kardinale zena gazterik hil zaigu eta, Larunseko semea bere sorterrian ehortzi dutelarik, gure ustez galtze handia izan da **Ama Elizarentzat** eta herriarentzat. Piarres Xarriton

9 *eliza ama* *(orobat* ***elizama****)*

Nik ere, eskolak egin izan ditut Erroman eta Parisen gaindi, **Eliza Amari** esker. Piarres Xarriton

Fraide eskuindarrek ezkertiar ateo bihurtu baldin baninduten, ez pentsa funtzionario ezkertiar progre-usteko haiek atzera ere **eliza amaren** magalera itzularazi nindutenik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiriko miliziakoak - **Eliza Amaren** baitan ongi haziak, denak- kanpora uzteko prest daude. Aingeru Epaltza

Goazen, beraz, Erromako gure **Eliza Amarengana** eta jakinaraz diezaiogun Aita santuari Jainkoak gure alde egin duena. Askoren artean

Erran nahi baita, Kalbinoren seme baten izkribuak -Erromako **Eliza Amaren** kontrakoa, beraz- lagundu duela bertutearen bideari jarraikitzen, Erromako **Eliza Amak** manatzen duenarekin bat. Aingeru Epaltza

Eliza Ama Katolikoaren fedean. Imanol Unzurrunzaga

Eliza Ama Santu Katoliko Apostoliko eta Erromakoaren begietara. Iñigo Aranbarri

Jainkoak bereganako fedea indartzera eta **Eliza ama** santuko prelatu eta klerikoei laguntzera deitu gaitu. Askoren artean

Erromako **Eliza Ama** Sainduaren sineste katolikoaren arabera. Piarres Xarriton

Jaunaren aginduen eta **Eliza ama** santuaren legeen arabera. Askoren artean

Eliza ama santaren kontzilioez, kanonez eta konztituzioez ere baliatzen dira. Patxi Altuna

Ikusten duzu nola Jainkoak eta Andre Mariak miserikordia handi bat egin dizuten egun honetan, gure **Eliza Ama** Santaren grazian eta miserikordian hartu baitzaituzte. Juan Garzia

Aldez aurretik, gure **Eliza Ama** Santak agintzen duen eran. Patxi Ezkiaga

10 *eliza bide* (oroba **elizbide**)

Gazte balios hori hain zen prezatua ikasle munduan bezala, gazteriaren kirola sailetan, laneko eta **eliza-bideko** lagunak ahantzi gabe, nun bete-beteak ezarri baitituzte orok ere herriko eliza eta hunen inguruak oro ehortz-egunean. Herria

Pasaeran begiratu egin zien eta bat-batean sokei tiratu eta **elizbidean** gora joan zen. Anton Garikano

11 *eliza dorre* *(orobat* ***elizadorre*** *g.er.,* ***eliztorre*** *g.er., eta* ***elizdorre****)*

Bavarian bide gara; han hemenka **eliza dorreak** : eskualde katolikoa da. Marzel Etxehandi

Eliza-dorreak bestelakoak dira Frantzian. Mirentxu Larrañaga

Eliza-dorrearen inguruan txilioka zebiltzan sorbeltzei so. Mirentxu Larrañaga

Bat gelditzen da, eta bere serora arropak utzirik, edozein emazte bezala beztiturik, bizi da, lehenik **eliza dorrean** gordea, gordeka jatera ekartzen diotela. Michel Oronoz

Bat-batean **eliza dorrearen** arbelak ilargiaren distiraz jabetzen dira. Michel Oronoz

Meza nagusitik landa, Dominique Cornubikari jeneralak benedikatu du **elizadorrean** ezartzekoa den ezkila berria. Herria

Ordu berean, **eliza dorreko** ezkilak joiten hasi ziren bortizki. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Armada sartu zen Baxenabarren eta Xuberoan, eta oro su eta odoletan ezarri zituzten: elizak erre, apez batzueri lepoa moztu; Irisarriko **eliza-dorre** ederra erditaratu zuten, eliza eta ospitalea errautsi. Herria

Kaleak estuagoak dira, etxeak irregularragoak, **elizdorrea** txikiago eta zabalagoa. Xabier Olarra

12 *eliza ezkila* *(orobat* ***elizezkila****) iz*

Bi hilabete eta erdi hautan, plazarat etortzearekin halako lazdura batek sesitzen gaitu ikusiz gure **eliza ezkila** dorrez gabetua, huts dorpe bat horren orde da kausitzen. Herria

Elizezkila dorreak ezagun du obrari zinez lotu direla. Herria

13 *eliza gizon* ik **elizgizon**.

14 *Elizako guraso* *(ETCn* ***24*** *agerraldi) pl* antzinako Elizako doktoreak, fede gaietan aintzat hartzen diren izkribuak idatzi zituztenak.

Soldadutza debekatu egin zuten elkarren segidan lehenengo Elizako **Guraso** kristauek -Origenesek, Tertulianok eta bai Laktantziok ere-. Iñaki Mendiguren

Elizako **gurasoen** hizkera. Askoren artean

Kreatzaileari egoki eta bidezko iruditzen zitzaion Larunbata asteko azken eguna izatea, baina Lehen Elizako **Gurasoek** beste ikuspegi bat zuten. Xabier Olarra

Tentaldia badakit nik zer den, Elizako **Guraso** batek bezain ongi. Josu Zabaleta

15 *Elizaren guraso* *(ETCn* ***6*** *agerraldi) pl* Elizako gurasoak.

Anakoretek aurre egin behar izaten zioten, hala, ordu luzeen aspertasunari; aspertasunari eta, Elizaren **Gurasoei** sinisten badiegu, egoera horretan deabruak ekarritako irudi tentatzaile eta fantasmei. Bernardo Atxaga

16 *kristau eliza*

Kristau Elizaren buruzagiak. **Kristau Eliza** Erromatar Inperioaren probintzi antolaketaz bere probetxurako nola baliatu zen. Iñaki Mendiguren

Kristau Elizak ekarpen garrantzitsua egin zion Mendebaldearen aurrerapen intelektualari unibertsitateak sortu eta babestuz. Iñaki Mendiguren

Kristau Elizaren iruditeria militarraren bilakaeran "Jainkoaren soldadua" lehenengo misiolaria zen. Iñaki Mendiguren

Kristau Eliza Katolikoak liluratuta baitzeuzkan bertako nekazari menderatuak. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste eliz (5); **beza espirituak eliz** (7); **den eliz** (7); **eliz amak** (6); **eliz atari** (6); **eliz ataria** (7); **eliz atarian** (38); **eliz atariko** (6); **eliz ataritik** (5); **eliz barruti** (6); **eliz dorrea** (5); **eliz dorrearen** (5); **eliz elkarte** (19); **eliz elkartea** (10); **eliz elkarteak** (9); **eliz elkartean** (5); **eliz elkartearen** (12); **eliz elkartearen aingeruari** (7); **eliz elkarteari** (18); **eliz elkarteari idatz** (7); **eliz elkarteei** (14); **eliz elkarteei esaten** (7); **eliz elkarteek** (5); **eliz elkarteen** (6); **espirituak eliz** (7); **espirituak eliz elkarteei** (7); **eta eliz** (40); **jainkoaren eliz** (6); **zazpi eliz** (5); **zen eliz** (7)

a eliza (8); **aiherrako eliza** (5); **andra mari eliza** (7); **austriako eliza** (6); **auzoko eliza** (5); **bai eliza** (5); **baina eliza** (13); **baita eliza** (10); **bere eliza** (12); **beren eliza** (6); **beste eliza** (16); **bi eliza** (11); **da eliza** (42); **dago eliza** (6); **damian eliza** (12); **dela eliza** (7); **den eliza** (9); **dira eliza** (11); **diren eliza** (5); **ditu eliza** (5); **du eliza** (18); **duen eliza** (9); **dugu eliza** (5); **dute eliza** (8); **edo eliza** (7); **egunean eliza** (8); **ehortz egunean eliza** (5); **eko eliza** (5)

eliza aintzinean (33); **eliza aintzineko** (6); **eliza aintzinetik** (7); **eliza aitzinean** (14); **eliza aldera** (8); **eliza ama** (26); **eliza amaren** (6); **eliza asko** (5); **eliza atarian** (12); **eliza atean** (7); **eliza atzeko** (6); **eliza aurrean** (7); **eliza barnean** (12); **eliza barruan** (15); **eliza barruko** (6); **eliza bat** (71); **eliza bat eta** (5); **eliza batean** (45); **eliza batean sartu** (6); **eliza bateko** (15); **eliza baten** (27); **eliza batera** (9); **eliza bera** (12); **eliza bere** (5); **eliza berri** (5); **eliza berria** (6); **eliza berritzen** (5); **eliza besta** (7); **eliza bete** (63); **eliza bete betea** (30); **eliza bete betean** (10); **eliza bete da** (5); **eliza betea** (13); **eliza betea zen** (7); **eliza betetzen** (6); **eliza beti** (5); **eliza da** (15); **eliza dorrearen** (6); **eliza eder** (7); **eliza ederki** (7); **eliza ederra** (8); **eliza ederrean** (7); **eliza edo** (13); **eliza ere** (17); **eliza erreformatuaren** (6); **eliza eta** (135); **eliza eta estatua** (8); **eliza ez** (17); **eliza gara** (10); **eliza gotiko** (7); **eliza guztietan** (8); **eliza handi** (11); **eliza handi bat** (7); **eliza handia** (6); **eliza hartako** (5); **eliza hartan** (18); **eliza hau** (18); **eliza hetsia** (5); **eliza honen** (6); **eliza hori** (8); **eliza horren** (13); **eliza horretan** (7); **eliza hortan** (8); **eliza hura** (10); **eliza inguruan** (17); **eliza inguruko** (6); **eliza izan** (8);

eliza jendez (12); **eliza jendez bete** (5); **eliza katoliko** (13); **eliza katolikoa** (40); **eliza katolikoak** (102); **eliza katolikoak ere** (5); **eliza katolikoan** (10); **eliza katolikoaren** (78); **eliza katolikoaren barruan** (7); **eliza katolikoaren hierarkiak** (5); **eliza katolikoari** (21); **eliza katolikoko** (50); **eliza katolikoko buru** (9); **eliza katolikoko burua** (7); **eliza mukurru** (47); **eliza mukurru bete** (11); **eliza mukurru betea** (25); **eliza nagusian** (9); **eliza ofizialaren** (6); **eliza ondoan** (12); **eliza ondoko** (24); **eliza osoa** (9); **eliza osoan** (6); **eliza osoki** (6); **eliza sahetsean** (6); **eliza santu** (9); **eliza santuaren** (14); **eliza solas** (5); **eliza ttipiegi** (9); **eliza unibertsal** (11); **eliza unibertsalak** (6); **eliza utzi** (6); **eliza zahar** (13); **eliza zahar baten** (5); **eliza zola** (5)

ere eliza (18); **erromako eliza** (55); **erromako eliza katoliko** (5); **espainiako eliza** (7); **estatua eta eliza** (5); **eta eliza** (178); **eta eliza ama** (6); **eta eliza katolikoak** (10); **eta eliza katolikoaren** (11); **eta erromako eliza** (8); **etan eliza** (5); **euskal herriko eliza** (6); **ez da eliza** (5); **ez eliza** (9); **frantziako eliza** (5); **gero eliza** (9); **gure eliza** (69); **gure eliza ama** (6); **gure eliza handia** (6); **hango eliza** (8); **harrizko eliza** (6); **herriko eliza** (25); **hiru eliza** (5); **hori eliza** (5); **itsasuko eliza** (5); **jainkoaren eliza** (11); **ko eliza** (5); **kristau eliza** (19); **lehen eliza** (5); **mari eliza** (7); **maria eliza** (16); **san damian eliza** (12); **santa maria eliza** (8); **zegoen eliza** (12); **zen eliza** (29); **zeure eliza** (5); **zeure eliza guztietan** (5); **ziren eliza** (6); **zituen eliza** (7); **zituzten eliza** (5); **zuen eliza** (33); **zuen eliza katolikoak** (7); **zuten eliza** (10)

baina elizak (8); **baina elizako** (6); **da elizak** (9); **da elizako** (11); **ditu elizak** (7); **du elizak** (19); **duen elizak** (5); **elizak berak** (10); **elizak berak ere** (5); **elizak bere** (24); **elizak duen** (5); **elizak ere** (17); **elizak eta** (25); **elizak ez** (36); **elizak ez du** (9); **elizako agintariek** (6); **elizako atea** (8); **elizako ateak** (5); **elizako atean** (8); **elizako beste** (5); **elizako dorrea** (6); **elizako erlojuak** (5); **elizako erretaula** (5); **elizako eta** (10); **elizako ezkilak** (5); **elizako kalostrapean** (5); **elizako kanpai** (8); **elizako kanpaia** (6); **elizako kanpaiak** (5); **elizako kanpaiek** (5); **elizako koruan** (6); **elizako plazan** (37); **elizako plazatik** (10); **elizako teilatua** (6); **elizako urratsak** (9); **elizako urratseri** (7); **elizakoak eta** (5); **ere elizak** (9); **erromako elizak** (17); **erromako elizako** (6); **eta elizak** (43); **eta elizako** (53); **eta elizakoak** (6); **gure elizak** (12); **gure elizako** (12); **herriko elizako** (5); **hori elizak** (8); **kristau elizak** (14); **zen elizako** (11); **zituen elizak** (10); **zuen elizak** (19); **zuen elizako** (5)

ahetzeko elizan (6); **aiherrako elizan** (49); **ainhoako elizan** (8); **aldudeko elizan** (7); **andra mari elizan** (7); **andres elizan** (17); **aratsaldean itsasuko elizan** (7); **arrosako elizan** (10); **azkaingo elizan** (5); **bai elizan** (5); **baigorriko elizan** (72); **bankako elizan** (6); **basusarriko elizan** (5); **bat elizan** (14); **beskoitzeko elizan** (8); **bidarteko elizan** (25); **bixintxo elizan** (17); **bizente elizan** (6); **da baigorriko elizan** (5); **da elizan** (26); **da gure elizan** (13); **da itsasuko elizan** (6); **dira aiherrako elizan** (7); **dira elizan** (5); **dira gure elizan** (11); **dira itsasuko elizan** (12); **dira ortzaizeko elizan** (11); **donapaleuko elizan** (7); **donibane garaziko elizan** (24); **donibane lohizuneko elizan** (89); **donoztiriko elizan** (6); **dute elizan** (8); **dute gure elizan** (8); **edo elizan** (7); **ehorzketak ortzaizeko elizan** (5); **eko elizan** (9)

elizan aratseko (6); **elizan bataiatua** (5); **elizan berean** (13); **elizan dute** (5); **elizan edo** (6); **elizan egin** (28); **elizan egin dira** (6); **elizan eman** (6); **elizan ere** (15); **elizan eta** (54); **elizan ez** (6); **elizan ezkondu** (11); **elizan ezkondu dira** (6); **elizan ezkontzako** (11); **elizan ezkontzako sakramendua** (6); **elizan ezkontzako sakramenduak** (5); **elizan gure** (8); **elizan helduden** (7); **elizan igande** (5); **elizan iragan** (44); **elizan iragan dira** (24); **elizan iragan igandean** (5); **elizan izan** (17); **elizan izanen** (6); **elizan izango** (9); **elizan izango da** (6); **elizan joanden** (6); **elizan kantaldi** (10); **elizan meza** (15); **elizan sartu** (35); **elizan sartu eta** (5); **elizan sartu zen** (9); **elizan sartu ziren** (7); **elizan sartzean** (5); **elizan sartzeko** (6); **elizan sartzen** (10); **elizan ziren** (7)

ako elizan (26); **ere elizan** (10); **eta elizan** (51); **etan elizan** (6); **etorri elizan** (7); **etxe eta elizan** (7); **etxean eta elizan** (19); **eugenia elizan** (34); **extebe elizan** (5); **ezpeletako elizan** (7); **frantzisko elizan** (12); **garaziko elizan** (27); **getariako elizan** (13); **gure elizan** (87); **gure elizan iragan** (7); **gure herriko elizan** (14); **haltsuko elizan** (6); **hazparneko elizan** (28); **heletako elizan** (5); **herriko elizan** (74); **herriko elizan iragan** (6); **igandean gure elizan** (7); **irisarriko elizan** (6); **irulegiko elizan** (5); **isturitzeko elizan** (10); **itsasuko elizan** (80); **izturitzeko elizan** (7); **izurako elizan** (6); **jainkoaren elizan** (5); **jondoni bixintxo elizan** (13); **jondoni martine elizan** (10); **jorge elizan** (6); **kanboko elizan** (50); **kantaldia elizan** (14); **kaputxinoen elizan** (6); **ko elizan** (15); **kontzertu bat elizan** (6); **kontzertu elizan** (5); **kontzertua elizan** (15); **larzabaleko elizan** (5); **lekorneko elizan** (9); **lekuineko elizan** (6); **leon elizan** (9); **lohizuneko elizan** (89); **luhusoko elizan** (8); **makeako elizan** (6); **mari elizan** (7); **maria elizan** (15); **martin elizan** (5); **martine elizan** (11); **mauleko elizan** (11); **meza elizan** (7); **nikolas elizan** (5); **obabako elizan** (5); **ongi etorri elizan** (7); **ortzaizeko elizan** (28); **san andres elizan** (17); **san bizente elizan** (6); **san frantzisko elizan** (11); **san jorge elizan** (6); **san leon elizan** (8); **san martin elizan** (5); **san nikolas elizan** (5); **santa eugenia elizan** (34); **santa maria elizan** (10); **santandreseko elizan** (7); **sarako elizan** (13); **senpereko elizan** (13); **urepeleko elizan** (10); **urruñ uztaritzeko elizan** (18); **zegoen elizan** (6); **zen elizan** (8); **ziburuko elizan** (37); **zuen elizan** (13)

elizara eraman (8); **elizara eta** (9); **elizara itzuli** (9); **elizara itzuli zen** (5); **elizara joan** (31); **elizara joan zen** (8); **elizara joateko** (6); **elizara joaten** (21); **elizara sartu** (10); **eta elizara** (20); **zen elizara** (12)

baina elizaren (5); **bizente elizaren** (5); **da elizaren** (23); **den elizaren** (8); **dira elizaren** (9); **du elizaren** (7); **edo elizaren** (7); **elizaren aitzinean** (9); **elizaren albo** (5); **elizaren artean** (8); **elizaren arteko** (6); **elizaren atarian** (8); **elizaren aurka** (5); **elizaren aurrean** (8); **elizaren baitan** (9); **elizaren barnean** (12); **elizaren barneko** (5); **elizaren barruan** (18); **elizaren bete** (5); **elizaren boterea** (14); **elizaren buru** (9); **elizaren egoera** (7); **elizaren eta** (43); **elizaren eta estatuaren** (7); **elizaren haur** (12); **elizaren historia** (7); **elizaren inguruan** (16); **elizaren izenean** (8); **elizaren lehen** (6); **elizaren ondasunak** (8); **elizaren ondo** (9); **elizaren ondoan** (22); **elizaren ondoko** (12); **elizaren ordezkari** (5); **elizaren parean** (7); **ere elizaren** (8); **erromako elizaren** (18); **estatuaren eta elizaren** (5); **eta elizaren** (101); **eta elizaren arteko** (5); **eta elizaren haur** (12); **frantziako elizaren** (5); **hasierako elizaren** (6); **herriko elizaren** (6); **ingalaterrako elizaren** (5); **jainkoaren eta elizaren** (13); **kristau elizaren** (19); **maria elizaren** (8); **san bizente elizaren** (5); **santa maria elizaren** (7); **zen elizaren** (10); **ziren elizaren** (8); **zuen elizaren** (8); **zuten elizaren** (5)

elizari buruz (6); **elizari eta** (7); **elizarik ez** (7); **elizatik atera** (11); **elizatik ateratzen** (5); **elizatik eta** (5); **elizatik hurbil** (13); **elizatik irten** (10); **elizatik kanpo** (9); **elizaz eta** (8); **elizen arteko** (11); **elizetan ere** (5); **elizetan eta** (6); **eta elizari** (11); **eta elizatik** (13); **eta elizaz** (6); **eta elizetako** (9); **eta elizetan** (13); **gure elizetan** (12); **hiru elizen** (5); **zen elizatik** (7)

---

elizabethiar *izond* Ingalaterrrako Elizabeth erreginari dagokiona.

Ingeles hizkuntzaren urrezko eguerdi distiratsuan, **elizabethiar** handien ezpainetatik beren zentzua sortzen zuten eta beren hotsean bertan zeramaten hitzak jalkitzen zirenean. Xabier Olarra

---

elizaburu *(orobat **elizburu**)* *iz* elizako burua.

Dakar afrikar hirian bildu dira 150 apezpiku, denak Afrika eta Madagascarreko **elizaburuak**, beren hamahirugarren biltzar orokorrarendako. Herria

Eta orduan Urgelgo Artzapezpiku eta Armadako **elizaburu** zen Caixal Estradé agurgarriak berrikerien eta liberalismoaren kontra hitz ezinago gogorrez oratutako sermoi beldurgarria bota zuen. Txillardegi

Egun gutxi lehenago, ia iragarpen hotsandiko berberaz ("Habemus Papam") eman zitzaion amaiera Eugenio Pacelli kardinala Petriren Aulkira jaso zuen **elizburuen** bilkurari. Juan Garzia

---

elizadorre ik **eliza 11**.

---

elizadun *izond/iz* eliza duena.

Elizadunen kopurua ttipitzen ari da. Herria

---

elizain *iz* sakristaua.

Kapeilauak, kalonjesak, egoitzadunak, kalonjeburuak, kalonjeburuordeak, herrixkako kalonjeak, abdalak, kutun-saltzaileak, artxidiakonoak, hierarkak, eskolako lehenak, benefiziodunak, kapitularrak, xekeak, monje budistak, eskaleak, eskribak, guruak, koru-arduradunak, sinagogazainak, fakirrak, **elizainak**, beneragarriak, errebibalistak, zenobitak, bizi arteko bikarioak, kaperauak, [...]. Xabier Olarra

---

elizaitzindari *iz* elizako aitzindaria.

Zernahi gisaz, ez ziren Florentziako **elizaitzindari** erdi ateo haietarik gure herrietako apez xaharrak. Piarres Aintziart

---

elizako *iz pl* hiltzeko zorian dagoenari ematen zaizkion sakramentuak, eskuarki jaunartzea.

Atzo hil zen, 36 urte zituela, **Elizakoak** eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren. Anjel Lertxundi

Eliz-jantziz azaldu zen, **elizakoak** ematera bezala, eta eskuak luzaturik exorzismoak esan zizkion. Josu Zabaleta

Aita meza-laguntzailea zen eta apaizari **elizakoak** ematen laguntzea gustatzen zitzaion. Joseba Urteaga

Heriotza gainean zuela ikusirik, **elizakoak** eskatu zizkion fraide bati. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elizakoak eta (5); **eta elizakoak** (6)

elizakume *iz adkor* eliztarra.

Eta boterera iristean, 8garren artikuluaren zaporea dastatuko dute 7garren artikuluko **elizakume** atzerakoiek. Koldo Biguri

elizaratu, elizara(tu), elizaratzen da/du *ad* elizara joan; elizara eraman.

Maiatzaren 6 an, bere aita-amen besoetan **elizaratu** da bataiatua izaiteko. Herria

Igande huntan, amaren besoetan, **elizaratu** da bataioaren bidez Jainkoaren eta Elizaren haur izaiteko. Herria

Badira orain gero eta jende gehiago, euskaldunen artean partikulazki, ideia politiko zein erlijiosoengatik **elizaratzen** ez direnak. Itxaro Borda

Bertze hileta-elizkizun bat zegoen, nonbait, izeba Milagrosenaren ondotik, jende uholde berria ari baitzen **elizaratzen** ostera, kanporatu berriekin anabasan nahasiz. Aingeru Epaltza

Kanpoan plaza inguruak jendez beteak zauden, domaia da prosione lerroetarik bazter egoiten baita hoinbeste jende, sakramendu saindua berriz **elizaratzekoan** partikulazki. Herria

elizate *iz* elizaren atea; eliz inguruko auzoa.

Elizatea baino harriagarriagoa da, naski, murru harresiaren begi bezala den arrosetoia. Piarres Aintziart

Elizateak bortxatu behar dituzte. Xipri Arbelbide

Urtea eta mendea untsa hasten ditugu gure herrian zeren **elizateko** bi etxetan baititugu sortu berriak. Herria

Larrazken huntan hasirik **elizateko** ur zikinen sanotzeko lanak bururatu dira. Herria

elizatiar *iz ipar* eliztarra.

Artetik erraiteko, Perkain osoki **elizatiarra** zen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eliza, ez da gehiago sakristiako gelan bizi **elizatiarren** artean bainan kanpoan eta hor aurkitzen dira girixtino berriak, anaitasuna bizi nahi dutenak. Herria

Elizatiarrentzat Ama Birjinaren hilabetea balinbada, frangotan erraiten da ere, halako maltzur aireño batekin, maiatza jende alferrena dela! Herria

Denek ahantzia Robert II-garrena, Robert **elizatiar** handia, frantsesez *Robert le Pieux* deitua, aita sainduak eskumikatu zuena haatik bere lehen emaztea utzi baitzuen gazteago baten hartzeko. Herria

Gure elizetan ikusten diren udatiarretan badira **elizatiar** jarraikiak, badira ere hala ez direnak. Herria

elizatorra *iz* oinetarainoko jantzi zuria, apaizak meza emateko jazten duena.

Itxura indartsuko giza irudi bat agertu zen, erditik gora **elizatorra** batean bildua, pulpitura igotzen. Irene Aldasoro

elizatto *iz* elizatxoa.

Nehor ez deus baztertu gabe, euskal **elizatto** baten bilduma kutsua bezala zen hor senditzen, Baztango lur-lanetako mundu prestu baten erdian eta, hain zuzen, mundu zerbitzu bat oroz gainetik gogoan, gure etxekotik haste. Herria

Elizattoa ere han zuen, ez oraino eroria batere. Herria

Lo, **elizatto** budista baten atarian egiten du. Gotzon Garate

Biasteri aldean, Leza inguruan, X. mendean bazuen bere **elizatto** erromanikoa, Nafarroako errege Festun Garzesek eraikia. Pello Zabala

elizatxo *iz* eliza txikia.

Orduan, zeukaten **elizatxoari** txikia iritzirik, eliza berri bat eraikitzen hasten dira, eta noski, gauza handi bat egin nahi dute, ederra. Pako Aristi

Ezponda eta makaldi artean, sakantxo batean, baseliza zaharra zegoen, **elizatxo** txiki bat dorre motz bat zuena. Koldo Biguri

Herritxo hura, lau etxe eta **elizatxo** bat muinoaren gainean. Edorta Jimenez

Muino borobilaren gaineko **elizatxo** xarmanteko kanpandorreak mezatara deitu ditu fededunak. Txillardegi

San Damian eliza inguruan zebilela - **elizatxoa** zaharraren zaharraz lur jotzeko zorian zegoen-, Espirituak eraginda, bertan sartu zen otoitz egitera. Berria - Kultura

Gorputza San Damian **elizatxoan** utzi zuten. Askoren artean

elizatzar *izond adkor* eliza handia.

Santo Domingoko **elizatzarra** eta Hilobi Sainduko batimendu idor beltzairea. Txillardegi

Gaueko elizkizunera ez zen ia inor joan; **elizatzarra** eta plaza, biak hutsik egon ziren. Josu Zabaleta

Etxe berria azkeneko pisuan zegoen, eta **elizatzar** itsusi bat, pintura fabrika bat eta bainuetxe publikoak zeuden plaza batera ematen zuen. Fernando Rey

Horrela, neguan, herriko farol apurrak hotzaren itzal umelak argitu ezinik zeudela, eta kaleak huts-hutsik, bederatzi edo hamar urteko ume hura bakarrik abiatzen zen **elizatzar** hartan barrena. Pako Aristi

elizazale *izond* elizaren zalea dena.

Erregea bera baino erregezaleago edota aita santua baino **elizazaleago** izan daitekeen bezalaxe. Josu Zabaleta

elizbarruti *(orobat **eliz barruti** g.er.)* **1** *iz* apezpiku baten agintaritzapeko eskualdea.

Hugolino bi **elizbarruti** horietako gotzain zen. Askoren artean

Elizbarrutiko apez xumeena apezpikua baino askeago da, bereziki abertzalea balin bada. Piarres Aintziart

Aspaldi luzetik Kalahorrako **Elizbarrutian** izan ziren Bizkaiko alderdi euskalduna, Araba gehiena eta Deba arroa. Koldo Zuazo

Donostiako **elizbarruti** edo diosesak emazte bat izendatu du idazkari nagusi bere segetaritzan. Herria

Perugia **elizbarrutiko** San Justino monasterioko abadeak Frantzisko santuarekin topo egin zuen bidean. Askoren artean

Anaiek ez bezate gotzain baten **elizbarrutian** predika, hark debekatua dienean. Askoren artean

Orduko lapurreta hura, Pio XII.ak berretsi eta larritu baizik ez zuen, Baionako Albert Léon Terrier apezpikuari deus erran gabe, gure **elizbarrutiari** kendu ziolarik Ondarlako

auzoa, Iruñekoari emaiteko. Piarres Xarriton

Espainiako **Elizbarrutien** Batzordeko ekonomia gaietako idazkariorde Fernando Gimenez Berriocanal prest azaldu da BEZaren ordainketa Gobernuarekin negoziatzeko. Berria - Harian

Irudi horiek ekainaren 6ra arte egongo dira ikusgai **Elizbarrutiko** museoan. Berria - Kultura

Euskal Herriko **Elizbarrutiko** Misioetako arduradunak iazko urrian hasi ziren bisak eskatzeko prozedurarekin. Berria - Euskal Herria

Elizbarrutiek iritzia emateko eskubidea dute; euren gotzaina zein izango den erabakitzeko aukera izan behar dute. Berria - Harian

Sao Paulokoa Brasilgo **elizbarrutirik** handiena da. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Maiatzaren 26an ostegunez, aratsaldeko 7etan Baionako *Maison Diocésaine* **Elizbarruti** Etxean. Herria

· Bibli aipamenak Bibli Elkarte Batuek eta Euskal **Elizbarrutiek** argitara emandako Elizen arteko Biblia-tik (EAB) hartuak daude. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere elizbarrutian (4); **donostiako elizbarrutiko** (3); **elizbarruti etxean** (4); **elizbarrutian predikatzeko** (4); **elizbarrutiko museoan** (3); **elizbarrutiko san** (5); **eta elizbarrutiko** (3); **sora elizbarrutiko** (3)

---

elizbide ik **eliza 10**.

---

elizbira *iz* elizaren bira.

Gure aiton-amon, aittitte-amama bat baino gehiago akordatzen omen dira iragan San Markos egunez nola prozesio egiten zuten **elizbiran**, kyrieleisonak abestuz-eta. Pello Zabala

---

elizburu ik **elizaburu**.

---

elizdorre ik **eliza 11**.

---

elizetxe *(orobat **eliza etxe** g.er.) iz* eliza, elizkizunetarako bereziki prestatzen den eraikuntza.

Euskaldunen, bretainiarren, flandriarren eta gaskoinen frantsesteko lehen oztopoa haien hizkuntza bereziak zirela errana zuten aspaldian, baina frantses politikariak ohartu ziren eliza katolikoak ziela emaiten, basa hizkuntza guztiei, bere **elizetxe** eta ikastegietan bizirauteko doia ezagutza. Piarres Xarriton

Baraibarko pilotari ohia Aralarko San Migel **elizetxeko** inguruetan duen ehiza postutik gertu dagoen 20 metroko amildegi batetik jausi zen. Berria - Kirola

Bereziki seinalatzen du apezpikuak, azken huntaz Haristoy apezak gure parropietaz utzi zuen liburua, hunek erakusten baitu otoitzetxe edo **elizetxe** deitu elizetan izan zutela horiek beren hastapena 1.099 ko Kurutzedunekin. Herria

---

elizezkila ik **eliza 12**.

---

elizgabetu, elizgabe(tu), elizgabetzen du *ad* eliza kendu.

Durango **elizgabetua** izan zen Kristoren izenean. Lutxo Egia

---

elizgizon *(**262** agerraldi, **47** liburu eta **19** artikulutan; ETCn **1.626** agerraldi; orobat **eliza gizon** **14** agerraldi, **2** liburu eta **12** artikulutan; ETCn **45** agerraldi)* **1** *iz* elizako ordenak hartu dituen gizona. ik **apaiz; diakono; fraide**.

Ez noble, ez **elizgizon**, ez hirietako, hiru Estatuetarik bakarreko kidea ere ez zen Migel Mailu. Aingeru Epaltza

Ondarreta (Donostia) deitu presondegiko gela eta ganbara hitsetan, sartu-atera eginarazi diote Gipuzkoako **elizgizon** talde haundi bati; eta anitz dira (herrigizon ala **elizgizon**, gazte ala zahar) handik, gau-erditan, fusilatzeko aterarazi dituztenak. Jokin Urain

Ordurako bilduta zeuden errege-erreginak, hainbat aitorenseme eta alaba, kapare, zaldun eta **elizgizon**. Anjel Lertxundi

Lazarragaren lana oasi txiki bat da euskal literaturgintzan, **elizgizona** ez zen jauntxo euskaldun eta literaturzale batek, asmo erlijiosorik gabe, idatziriko obra. Berria - Harian

Elizgizon ordenatu ninduten haur nintzelarik. Potenza hirian, **elizgizon** bat bizi zen, Rogerio izenekoa, gizon agurgarria eta bertako eliza nagusiko kalonjea. Juan Garzia

Elizgizonek laikoen lepotik dituzten gehiegizko abantailak. Iñaki Iñurrieta

-Zin egin edo ez, Jainko gizonak gara eta gure eliza-botoak beste edozeinenak bezain legezkoak dira -aldarrikatu zuen **elizgizonak**, sumindurik-. Elena Touyarou

Horretan nork lagundurik ez zuen monasterioko **elizgizonen** artean. Aingeru Epaltza

Erregeak, **elizgizonek** eta jaunek zerga arautuak biltzen zituzten, bakoitzak bere jabetzetako jopuengandik. Iñaki Iñurrieta

Aristokratek ez zuten zergarik pagatzen, ez eta apezek ere, eta orokorki jatorriz nobleak ziren eta ontasunak berentzat biltzen zituzten maila goreneko **elizgizonek** ere. Elena Touyarou

Elizgizon batek ez du herri demokratiko bateko justiziaren lekua hartu behar. Berria - Euskal Herria

Elizgizonen pribilegioen kontra egindako guztia zuzen zedin agindu zuen. Iñaki Iñurrieta

Elizgizonak iraungi ezin den familia dira: beraz, ondasunak betiko dituzte, eta ezin dira haiengandik irten. Iñaki Iñurrieta

Sona handiko **elizgizona** izan da iragan hamarkadetan Ratzinger. Berria - Gaiak

2 (izenondoekin)

Ehun urte dira, erakasle, idazle eta **elizgizon** famatu hau sortu zela Heleta Garra etxalde jori ezagunean. Herria

Patxi Altuna **elizgizon** zintzo eta leiala izan zen, bai elizarekin, bai Jesusen Konpainiarekin eta bai kristau herriarekin. Berria - Kultura

Elizgizon pobre bat edo antzezle pobre bat ematen zuen pertsona bat agertu zen atean. Irene Aldasoro

Kardinal eta beste **elizgizon** handiki asko ia egunero joaten ziren Frantzisko ikustera, santuaganako begirune eta debozioak bultzatuta. Askoren artean

Hain adimen argi eta zuhurra lortu zuen, non **elizgizon** jakintsuenak ere berarengana etortzen baitziren Idazki Santuko arazo zailenen eta pasarte nahastuenen esplikazio bila. Askoren artean

Aristoteles baino mendeak lehenago, Herodoto egiten du estilo **elkarbigiztatuaren** eredu, beste autore greko batzuek zuten estilo periodikoaren aurrez aurre. Patziku Perurena

Floristan Imizkoz jaunak dioenez terminologia modernoan identifika genezake, alde aldera, estilo periodikoa "menpekotze"arekin eta **elkarbigiztatua** lotze edo "koordinatze"arekin. Patziku Perurena

Estilo **elkarbigiztatuan** aldiz, parez pareko perpausak ondozkatzen dira, elkarren menpekotasunik eta batasunik batere eratu gabe. Patziku Perurena

elkarbildu, elkarbil, elkarbiltzen du *ad* bildu, elkarrekin bildu.

Honela zu eta izaki guztiak **elkarbiltzen** dituena hartzen duzu, eta mundu honetako ondasun iragankorrak baino indartsuagoa dena zeureganatzen. Askoren artean

Jaunaren espirituak lurra betetzen du eta, gauza guztiak **elkarbiltzen** dituenez, hots guztiak ezagutzen ditu. Elizen arteko biblia

Gizartea **elkarbiltzeari**, borobiltzeari, begiratzen diote moraltasunak eta legeak. Joxe Azurmendi

elkarbiltze *iz* biltzea, elkarrrekin biltzea.

Lehen **elkarbiltze** hura amaitzear zegoela, hantxe Institutuaren sarreran bertan, Rekexok adierazi zion berriro ere berarekin eta Lucindarekin biltzeko gogoa, lasai eta patxadan arazoaren atal guztiez hitz egin eta eztabaidatzeko. Joxemari Iturralde

elkarbizi, elkarbizi, elkarbizitzen da *ad* bizi, elkarrekin bizi.

-Inporta zaizu piano batekin **elkarbizitzea**? Harkaitz Cano

Guk nahi dugun Europan espazio politikoa Europako instituzioa izango da eta euskaldunok zein beste herrietakoak bertan **elkarbiziko** gara, instituzio komunetan gure burujabetza partekatuz. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta hizkuntza komunitate desberdinak lurralde, garai eta baldintza politiko-sozial beretan **elkarbizitzeak** erlazioak, nahasketak eta definizio zaileko guneak sortzen dituen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bera ez omen da emakumeekin **elkarbizitzera** ohituko den horietakoa. Hasier Etxeberria

Atxikimendu askeko federalismoa da, Lopezen ustez, gatazkaren konponketarako lehen pausua, «herri anitzaren beharrak **elkarbizitzeko** aukera emango duelako horrek». Berria - Euskal Herria

elkarbizitza **1** *iz* elkarrekiko bizitza.

Elkarbizitza arautzen duen ordenamendu morala. Joxe Azurmendi

Han egingo zuten **elkarbizitza** guztia. Josu Zabaleta

Elkarbizitzak sortzen dituen tentsioak eta arazoak. Luis Elberdin

Ezkontzak, edo **elkarbizitzak**, amodioa hilkutxa hotz baten parekoa bihurtzen du. Patxi Zubizarreta

Horixe da kontua: holakoxe hamaika mila ziurtasun absolututan oinarritua dagoela **elkarbizitza**, hots, deklaratu gabeko mila balio absolutu dagoela praktikan. Joxe Azurmendi

Elkarbizitza berri bat balioen "politeismoan" bideratzeko praktikan. Joxe Azurmendi

Bikote baten **elkarbizitzak** errezela bat du beti erdian, bataren zein bestearen pentsamendu eta sentimendu benetakoak ezagutzea galarazten duen muga iraganezina. Anjel Lertxundi

Gaur egungo gizartea oso memoria kaxkarrekoa da eta aise ahantzi du kulturen arteko **elkarbizitzaren** aldi gogoangarri hura. Krisiak **elkarbizitzaren** fundamentuak berak -instituzioak bezala arauak- apurtu dituenean. Patxi Zubizarreta

Begirunea eta **elkarbizitzaren** bidetik eraiki dute frantziarrek Europako harrobirik oparoena, heziketa zorrotz eta eraginkorrean oinarriturik. Berria - Kirola

Euskadiko **elkarbizitzaren** normalizazioa errazteko. Jokin Urain

Elkarbizitzako arau bat agintzeko eta legeak egiteko. Piarres Xarriton

Elkarbizitzarako borondatea gauza nahiko razionaltzat eta positibotzat hartzekoa dela, inork ez du zalantzarik egingo. Joxe Azurmendi

Elkarbizitzarako bake-bideak. Berria - Harian

2002. urteko maiatzean sinatu zuen Eudelek **Elkarbizitzarako** Ituna. Berria - Euskal Herria

-Ados nago: **elkarbizitza** landare bat da, egunero zaindu beharra dago, baldin eta plastikozkoa ez bada. Patxi Zubizarreta

Jainkoarekin duen **elkarbizitzak** haren jatorri bikaina goraipatzen du, gauza guztien Jaunak baitu maite. Elizen arteko biblia

Beren bihotz-maitasun osoa **elkarbizitzan** iraultzen zuten. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Elkarbizitza berri bat balioen "politeismoan" bideratzeko praktikan. Joxe Azurmendi

Balkanetan jasotzen dena gogoan harturik aniztasun hori **elkarbizitza** baketsuaren berma modukoa datekeelakoan, nik uste. oso garrantzitsua da gizarteak duen bake esperantza ez zapuztea, eta **elkarbizitza** egokia lortzeko prozesuari ekin behar zaiola uste du. Edorta Jimenez

Elkarbizitza egonkorra, ezin da mehatxuz, irainez, indarkeriaz edo nortasuna ukatuz inposatu. Berria - Euskal Herria

Herritarren erabaki demokratikoa errespetatzea da **elkarbizitza** iraunkor bat lortzeko giltza oinarrizkoa. Berria - Euskal Herria

Indarkeria amaitzen bada, lehendakariak eta EAJk erantzukizun handia izango dute **elkarbizitza** soziala eraikitzen. Berria - Euskal Herria

Bera beren **elkarbizitza** sekretuko oroitzapenez beterik, samurtasun eta poz eta desiraz beterik zegoen bitartean, Grettak beste bat zuen buruan. Irene Aldasoro

Garapenari eta bakezko **elkarbizitzari** buruzko eztabaida aldakorrak historia garaikideak eman duen aurrerapen intelektual eta politikorik adierazgarriena da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizartea egoteak berak suposatzen duen hainbat eta hainbat ditugu horrelako balio absolutuak, negatiboak eta mugak ezartzen dituztenak batik bat: edozein **elkarbizitzaren** aurretiazko isilpekoak izan litezke; gizarteko ekanduak soil izan litezke. Joxe Azurmendi

Horrelako **elkarbizitzak** ezinbestean dakartzan kexu, haserre eta oztopoek, laster gogaitu ninduten. Urtzi Urrutikoetxea

Erabakitako **elkarbizitza** hartarako, hamaika gauza egin behar izan nuen, txintik ere atera gabe. Hasier Etxeberria

Ezpainak amodioz hurreratu zizkion eta etorkizuneko **elkarbizitzaz** mintzatu. Patxi Zubizarreta

3 (hitz elkartuetan)

Elkarbizitza arauen urraketa ekar zezaketela. Berria - Kultura

Helburu hori oinarrizkoa da jasaten ditugun indarkeria eta **elkarbizitza** arazoak konpontzeko. Berria - Harian

Euskal Herriarentzako nahi duten **«elkarbizitza** ereduan» bat ez datozela onartu dute biek. Berria - Euskal Herria

Une historiko jakin batean euskal gizartearen gurari politiko legitimo bat aurrera eraman eta **elkarbizitza** proiektu baten inguruan. Berria - Euskal Herria

Bullying: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eskoletako **elkarbizitza** giroarekin zerikusia duten gaiak zehaztasunez aztertuko dira. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko elkarbizitza (13); **arteko elkarbizitzarako** (3); **arteko elkarbizitzaren** (7); **arteko elkarbizitzaren aldeko** (4); **askatasun eta elkarbizitzarantz** (8); **bakea eta elkarbizitza** (3); **da elkarbizitza** (3); **dute elkarbizitza** (3); **elkarbizitza baketsuaren** (3); **elkarbizitza eta** (12); **elkarbizitza politikoa** (3); **elkarbizitzarako bake** (10); **elkarbizitzarako bake bidea** (4); **elkarbizitzarako bake bideak** (6); **elkarbizitzarantz izeneko** (5); **elkarbizitzarantz izeneko txostena** (4); **elkarbizitzaren alde** (6); **elkarbizitzaren aldeko** (5); **elkarbizitzari buruzko** (4); **eta elkarbizitza** (21); **eta elkarbizitza eta** (3); **eta elkarbizitzan** (5); **eta elkarbizitzarako** (7); **eta elkarbizitzarantz** (8); **eta elkarbizitzarantz izeneko** (5); **eta elkarbizitzaren** (8); **eta elkarbizitzaren alde** (3); **eta elkarbizitzari** (4); **gure elkarbizitza** (3); **kulturen arteko elkarbizitzaren** (3)

---

elkarbizitze *iz* elkarrekin bizitzea.

Presoek muturreko egoerei egin behar diela aurre esan zuen LABeko ordezkariak: «Besteak beste, elikadura txarrari, zaintza egokia jasotzen ez duten **elkarbizitzeari**, konfidantzazko medikuen zaintza ez izateari eta informazio ezari egin behar diote aurre». Berria - Euskal Herria

---

elkardura *iz* elkarketa.

Uccellok haren gorpuaren zurruntzea irudietaratu zuen, eta eskutxoen **elkardura**, eta begi itxi gaixoen lerroa. Juan Garzia

---

elkarfinantzatu, elkarfinantza, elkarfinantzatzen du *ad* finantzatu, elkarrekin finantzatu.

Arabako 13 udalerrik aurkeztu zituzten programak, eta soilik bi **elkarfinantzatutako** ditu Jaurlaritzak: Gasteizkoa eta Aguraingoa. Berria - Ekonomia

---

elkargaindu, elkargain, elkargaintzen da *ad* elkarren gainean jarri.

Jarduera sozialeko bi mota horiek **elkargaintzen** dira. Xabier Olarra

Eta euriek etengabe jarraitu eta luzaro iraun ohi dute, ur hazi asko sortu eta hodei eta ninbo jariotsuak alde guztietatik etortzen eta **elkargaintzen** direnean eta lur osoak, kea dariola, baporea hats egiten duenean. Xabier Amuriza

---

elkargainean *adlag* elkarren gainean.

Hor datza gure ardatza: gizabere hutsak gara, Joxe Azurmendi dixit, edo Elioten erranetan, gizon hutsak gara, beterikako gizonak gara, **elkargainean** finkaturik, kaskoa lastoz beterik. Berria - Kultura

---

elkargainka *(orobat **elkar gainka**) adlag* elkarren gainka.

Xafla horiek **elkargainka** antolaturik daude, erdian zirkulu formako irekidura bat uzteko moduan. Irene Aldasoro

Bulegoetan eskuizkribu guztiak nahaspilan zeuden, **elkargainka**, ez zegoelako behar adina apalategi. Fernando Rey

Ondorengo gertaerak, uholde baten antzera, **elkargainka** etorri ziren. Juan Kruz Igerabide

Ariman hilketen eta tratu txarren ardurak **elkargainka** pilatzen direnean, zer aitor liteke? Juan Kruz Igerabide

Doluminak etorri ziren orduan, arrapaladan, **elkargainka**, espantuka, faltsu. Txillardegi

Alde guztietatik albiste ikaragarriak zetozen **elkargainka**. Txillardegi

Hormetan, zahar itxurako gauza piloa ageri zen: lanabesak, irudi eta argazkiak, mapak... dena pilaturik, ia **elkar-gainka**. Xabier Montoia

Atea ireki, eta sekulako anabasa ikusi du: ikasle guztiak **elkar gainka**, Udalaitz halako bat osatuz: Ikaslemendi. Joxerra Garzia

---

elkargainkatze *iz* elkargainka jartzea.

Baina eguerdian, besterik gabe, jendetza ibiltzen den ordua baita, **elkargainkatze** irrigarria izaten da. Xabier Olarra

Hortik pleonasmoen **elkargainkatze** horretara ihes egin beharra. Joan Mari Lekuona

---

elkargaitz *izond* elkartzen zaila.

Elkargaitzak zarete. Joxean Agirre

Ez pentsa, beraz, Zentauroak gizakia eta zaldien hazia nahastetik etor daitezkeenik, ez txakur oldartiz inguraturiko gorputz erdi itsastarreko Eszilarik izan daitekeenik, ez atal **elkargaitzez** ikusten dugun beste antzekorik. Xabier Amuriza

---

elkarganatu elkargana(tu), elkarganatzen da/du *ad* elkarrengana bildu. ik **elkarretaratu; elkartu**.

Gero, ordea, hazi eta **elkarganatuz** ugalduko dira. Imanol Unzurrunzaga

Gainerakoek isilik estutu zioten elkarri eskua, izotza bezain hotza batzuena, sua bezain beroa besteena, eta isilik, elkarri ez begiratzeko ahaleginak eginez, talde moldegabea eratuz **elkarganatu** ziren. Jose Morales

Eta bizitza da, orobat, biltoki bat, non juntatzen eta **elkarganatzen** baitira arrazoinaren arrazoinak eta bihotzarenak. Joan Mari Irigoien

Gutuna berriz ixteko zorian zen Ruche jauna, pozik, bera eta Grosrouvre **elkarganatu** zituen aspaldiko kidetasuna berreskuratu zuelako. Jon Muñoz

Gertaerek **elkarganatu** zituzten. Karlos Zabala

Harresiek eta urruntasunak **elkarganatu** gaituzte tabike bat botatzeko proiektuak ez bezala. Koldo Izagirre

Haien armadaren hiru zutabeak **elkarganaturik** zeuden ordurako. Karlos Zabala

Mendi hauen orpoan, etxe lerro bat hertsiki **elkarganatua**. Xabier Montoia

---

elkarganatze *iz* elkarrengana biltzea.

Azken batean, **elkarganatze** horrek kazetaritza lana erraztu eta haien irakurleen mesederako izango zen. Karlos Zabala

Ustekabeko gau hartan gure ahotan hitz isilak eta pot eztiak erne ziren, gure lehen **elkarganatze** zoroaren lekuko bakarrak harresiak zirela. Patxi Zubizarreta

Liburuko gai nagusietako bat maitasuna da, hainbat ikuspuntutatik: amodio galduen nostalgia, **elkarganatze** fisikoaren egarria, urrutiratzearen mingostasuna... Ana Urkiza

---

elkargarri **1** *izond* elkar daitekeena.

Laster, elikagaien aukera amaigabea izango denez, jangai **elkargarriak** ere ugaldu egingo dira. Edorta Agirre

2 elkartzen duena.

Sentimendu arras amoltsu, gure bihotzen **elkargarri** haiek. Jon Muñoz

---

elkargarritasun *iz* elkargarria denaren nolakotasuna.

Fedearen eta arrazoiaren **elkargarritasunaren** problema orokorra aristotelismoaren eta teologiaren arteko egokieraren arazo bihurtu zen. Askoren artean

---

elkargo *(**906** agerraldi, **17** liburu eta **442** artikulutan; ETCn **10.524** agerraldi)* **1** *iz* elkartea, eskuarki zenbait lanbidetako kideak osatzen dutena.

Gero erantzuna ongi neurtu eta hizkuntza arranditsu batean formulatu behar duzu, bezeroak ere orakulutzat jo zaitzan, eta horrenbestez bere konfiantzaren eta Kimikarien **Elkargoak** finkaturiko tarifen duin. Juan Garzia

Ingeniarien **Elkargoaren** aurrean haren kontrako salaketa jartzeko aukera aztertu genuen. Edurne Elizondo

Bideetako, Ubideetako eta Portuetako Ingeniarien **Elkargoak** Espainiako Meritu Profesionalaren sari nagusia eman dio Rebollori. Edurne Elizondo

Biharamunean, taxisten **elkargoaren** bulegoetan abisua utzi ondoren, geralekua eta tren-estazioaren inguruak abandonatu zituen. Iban Zaldua

Baroien, noble berezkoen eta noble izendatuen liburutxoa ekarri zuen, eta baita Burtsako Bisitari Ohien **Elkargoko** urtekari bat ere. Anton Garikano

-Musulmanen **elkargoak** ordainduko dio. Patxi Zubizarreta

Badira hiru gauza Frantzian ukitu behar ez direnak: Frantziako **Elkargoa**, Pasteur Institutua eta Eiffel dorrea. Juan Garzia

Hantxe zegoen gure trikitilaria ere, Sabino Arana **Elkargoak** argitaraturiko presoen zerrendetan ageri da. Koldo Izagirre

Zer iruditzen zaizu Gleisbach **Elkargoa**, zer iritzi duzu haien akzioez? Anton Garikano

Jakin gabe zer izanen den zuzen bihar Europako Batasuna: ala Federazio ala konfederazio ala **elkargo**. Piarres Xarriton

Honek biak batera ulertzen lagun liezaguke, a) zergatik eboluzionatu den (terminologikoki) izpiritutik arimara, eta b) nola ulertu behar dugun arimaren eta biologiaren (arrazaren) **elkargoa**. Joxe Azurmendi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erran dizut osaba eta biok **elkargo** sekeretu bat fundatu genuela, edo eliza bat -Zientziaren Eliza-. Joan Mari Irigoien

Horri esker gainditu ahal izan zituen Europar **Elkargoaren** nukleo gogorrak 80ko hamarraldiko finantza-gorabeherak diru-testuinguru aski egonkor batean. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Joanen seme Eupolemo eta Eleazarren seme Jason hautatu zituen Judasek Erromara bidaltzeko, erromatarrekin adiskidetasun- eta **elkargo**-hitzarmena egin zezaten. Elizen arteko biblia

Gutuna igorri zuten Jerusalemera, bake- eta **elkargo**-agiri izan zedin. Elizen arteko biblia

Judas Makabearrak, beronen anaiek eta judu-herriak bidali gaituzte zuengana, zuekin **elkargo**- eta bake-hitzarmena egitera. Elizen arteko biblia

Diru bakarrak **elkargo** mailan truke-tasa flotanteko erregimenera itzultzea esan nahi baitu. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sazerdote-**elkargoak** behin baino gehiagotan debekatu behar izan zion naosera sartzea. Juan Garzia

EEE Europar Ekonomia **Elkargoa**. Koro Navarro

5 ***elkargo buru***

Baiona/Angelu/Miarritze hiri elkargoko kontseilu bilkuran hitza galdatu duelarik Ruwel aferaz, Borotra eta Grenet en ondotik, hiri **elkargo buruak** debekatu dio mintzatzea. Herria

Abrahamek bere etxea bere hiria bezala zeukalarik, izan behar zuen ez bakarrik aita familiakoaren boterea, etxeko nagusi bezala, baina ere herri boterea, **elkargo buru** bezala: bai zuzen liteke onartzea errazki botere hori zor zitzaiola. Piarres Xarriton

Dio bestalde zuzenago litakeela boz-emaiteko adinerat helduak diren guziek hautestea **elkargo-buruak** eta ez herrietako kontseiluek. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arkitektoen elkargoa (4); **arteko elkargo** (5); **bam hiri elkargoa** (5); **da herri elkargo** (4); **dira herri elkargo** (3); **elkargo autonomoan** (3); **elkargo bat** (10); **elkargo batean** (6); **elkargo berri** (4); **elkargo buruak** (3); **elkargo edo** (3); **elkargo eta** (4); **elkargo hori** (3); **elkargo horiek** (3); **elkargo horrek** (4); **elkargo horretako** (3); **elkargo hortan** (3); **elkargo sekeretu** (7); **elkargoa eta** (6); **eta elkargo** (6); **euskal herrien elkargoa** (3); **euskara kultur elkargoa** (5); **herri elkargo** (57); **herri elkargo bat** (6); **herri elkargo batean** (4); **herri elkargo berri** (3); **herri elkargo horiek** (3); **herri elkargo horretako** (3); **herri elkargoa** (39); **herrien elkargoa** (3); **hiri elkargo** (6); **hiri elkargoa** (17); **kultur elkargoa** (5); **miarritze hiri elkargoa** (7); **nazioarteko txirrindularitza elkargoa** (12); **txirrindularitza elkargoa** (12)

abokatuen elkargoak (8); **arana elkargoak** (7); **arana kultur elkargoak** (11); **arkitektoen elkargoak** (5); **baiona hirigune elkargoak** (3); **bam elkargoak** (4); **bam hiri elkargoak** (8); **bizkaiko abokatuen elkargoak** (3); **ditu hiri elkargoak** (3); **du herri elkargoak** (4); **du hiri elkargoak** (4); **elkargoak antolatutako** (4); **elkargoak atzo** (3); **elkargoak erabaki** (3); **elkargoak ere** (7); **elkargoak eta** (15); **elkargoak ez** (3); **elkargoak ez du** (3); **elkargoak uci** (12); **enpresaburuen elkargoak** (3); **euskara kultur elkargoak** (24); **herri elkargoak** (46); **hiri elkargoak** (44); **hirigune elkargoak** (11); **ingeniarien elkargoak** (3); **kultur elkargoak** (35); **kultur elkargoak atzo** (3); **miarritze hiri elkargoak** (17); **nazioarteko txirrindularitza elkargoak** (22); **sabino arana elkargoak** (7); **txirrindularitza elkargoak** (22); **txirrindularitza elkargoak uci** (12)

autonomi elkargoan (5); **elkargoan parte** (3); **elkargoan sartu** (6); **elkargoan sartzea** (4); **elkargoan sartzen** (3); **elkargoan sartzera** (3); **euskadiko autonomi elkargoan** (4); **herri elkargoan** (34); **herri elkargoan parte** (3); **herri elkargoan sartu** (6); **herri elkargoan sartzea** (3); **herri elkargoan sartzen** (3); **herri elkargoan sartzera** (3); **hiri elkargoan** (5); **hirigune elkargoan** (6); **iholdiko herri elkargoan** (3); **lapurdiko herri elkargoan** (4); **miarritze hiri elkargoan** (4); **oztibarreko herri elkargoan** (3)

arana kultur elkargoaren (4); **arkitektoen elkargoaren** (3); **baigorri herri elkargoaren** (3); **bam elkargoari** (4); **bam hiri elkargoaren** (3); **ekonomia elkargoaz** (3); **elkargoaren barnean** (3); **elkargoaren esku** (12); **elkargoaren esku uzten** (5); **elkargoaren eta** (4); **elkargoaren izenean** (3); **elkargoaren uci** (3); **eta herri elkargoaren** (3); **herri elkargoaren** (48); **herri elkargoaren esku** (8); **herri elkargoari** (11); **herrien elkargoaren** (6); **hiri elkargoaren** (12); **hiri elkargoari** (5); **hirigune elkargoaren** (3); **interes publikoko elkargoaren** (3); **kultur elkargoaren** (4); **miarritze hiri elkargoaren** (7); **nazioarteko txirrindularitza elkargoaren** (6); **oztibarreko herri elkargoaren** (3); **publikoko elkargoaren** (3); **txirrindularitza elkargoaren** (6); **txirrindularitza elkargoaren uci** (3)

elkargoek egin (6); **elkargoek egin dituzten** (5); **elkargoen esku** (3); **eta herri elkargoek** (7); **eta ingeniarien elkargoek** (3); **herri elkargoek** (17); **herri elkargoen** (11); **herri elkargoetako** (3); **ingeniarien elkargoek** (5)

abokatuen elkargoko (12); **arana kultur elkargoko** (3); **bam hiri elkargoko** (8); **bizkaiko abokatuen elkargoko** (4); **eko abokatuen elkargoko** (4); **elkargoko bilkuran** (4); **elkargoko lehendakari** (5); **elkargoko lehendakaria** (4); **elkargoko lehendakariak** (3); **elkargoko lehendakariaren** (3); **elkargoko presidentea** (5); **elkargoko**

presidenteak (9); **elkargoko zuzendari** (3); **euskadiko podologoen elkargoko** (3); **euskara kultur elkargoko** (16); **herri elkargoko** (19); **hiri elkargoko** (25); **hiri elkargoko presidenteak** (4); **hirigune elkargoko** (9); **iruñ kultur elkargoko** (20); **lapurdiko herri elkargoko** (3); **miarritze hiri elkargoko** (9); **nazioarteko txirrindularitza elkargoko** (3); **podologoen elkargoko** (3); **txirrindularitza elkargoko** (3)

herri elkargora (3)

---

elkargoztar

Elkargoztar garen euskaldun guztion beharra da herri-mami sendoaren alde egitea, etorkizuneko beste izaera politiko baten funtsa izan dadin. Berria - Euskal Herria

Elkargoztarren %54k hartutako jarrera arduratsuaren ondorio zuzenak dira gutariko asko hazi izan garen baldintza ekonomiko, ongizate, kultural eta sozial aurrerakoiak. Berria - Euskal Herria

Elkargoztar haien erantzukizunezko apustuak aldendu gintuen Murtzia edota Kantabriaren estatusa izatetik. Berria - Euskal Herria

---

elkargune *iz* elkartze gunea.

Kontuz aukeratutako leku batean, Rodano eta Saonaren **elkarguneak** sorturiko angeluan. Iñaki Mendiguren

Kazan pasa eta berehala, Kama ibaiaren **elkargunera** iristen direlarik, ibai nagusia utzi eta ibaiadarra hartu behar dute. Karlos Zabala

Froga ezazu **elkargune** hori inflexio-puntu bat dela. Xabier Olarra

Haren igoera sozialaren kurbak lagunaren beheraldiaren kurban zuen **elkargunea**. Irene Aldasoro

Ardatz bertikala marraztu zuen gero, ahapeka esanez: "y'y, koordenatu-ardatza", **Elkargunean**, J lodi bat idatzi zuen: "koordenatu-jatorria". Jon Muñoz

Beraren bitartez eratua zen **elkargunea**; berari zegokion, beraz, elkarrekiko loturak sortzea. Jon Muñoz

Noraino ote zen, halarik ere, Alessandro eta osaba Joanikotenganik eneganat hedatzen zen zubi hura hiruren arteko **elkargune** eta elkarbide, aurkileku eta bidegurutze [...]? Joan Mari Irigoien

Garbi dugu sektorearen arazo guztiei aurre egiteko lau herrialdeetako sindikatuek elkartuta lan egin behar dugula, eta **elkargune** hori indartzen jardun gara. Berria - Ekonomia

Euskal sortzaile ezberdinen arteko **elkargune** izateko bokazioaz ere jaio da hitzordu hori. Berria - Kultura

Munduko komikigileen **elkargunea**, zabalik. Berria - Kultura

Bertsolaritzaren geroa kanpoko faktoreen esku utzi gabe, bertsolaritzan hala edo hola inplikaturik sentitzen direnen **elkargunea** sortu eta proiektu baten inguruan lan egitea izan du ipar. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Askotariko teorien, makinen, lanabesen, gertakarien, praktiken, aktoreen eta giza harremanen arteko **elkargune**-espazio bilakatzen da zientzia. Askoren artean

Sentsibilizazio kanpaina hasi du Oinarriak **elkarguneak** Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Agerraldi publikoan azaldu zutenez, Aralar-Zutik **elkargune** politikoaren helburua Euskal Herria ezkerretik eraikitzea da. Berria - Euskal Herria

Erabakimena **elkargune**. Berria - Euskal Herria

---

elkargurutzatu, gurutza, gurutzatzen **1** da *ad* gurutzatu, elkarrekin gurutzatu.

Hainbat pertsonaiaren bizitza **elkargurutzatzen** dira Irasizabalen liburu berrian. Berria - Kultura

Elkargurutzatzen diren ikuspegi ugaritatik eraikitako filma da, Misterioen maisu eta legearen nagusi, pentsamenduaren tronuaren gailurretara goratua, Antzaldatzearen distira hitsak aurpegia harturik, zangoak **elkargurutzaturik** eta mihia alborantz okertuz, editoreak bere nahia paperean listukatzen du eta erabiltzeko moduko neurrietan zirtzilatzen. Berria - Kultura

Bi zakur suzko jalgi ziren aurkez aurkeko bi horma-hobitatik, eta **elkargurutzaturiko** garrak goitikatu. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Esku gogorki hertsatuan pergamino puska bat zeukan, zentrotik zirkunferentziara zihoazen eta ostera zirkunferentziatik zentrora itzultzen ziren lerro **elkargurutzatuz** estalia. Juan Garzia

Gauez, Brunelleschi edo Manetti Uccellorekin ikastera zetozenean, loak hartzen zuen, gauerdia jorik, zuzen **elkargurutzatuen** oinean, argiontziaren pean hedatzen zen itzal-inguruan. Juan Garzia

---

elkargurutzatze *iz* gurutzatzea, elkarrekin gurutzatzea.

Neskatoak begiratu zionean, haren betileetako lerrotxo guztiak ikusi zituen, eta betseinen zirkuluak, eta betazalen kurba, eta ileen **elkargurutzatze** sotilak. Juan Garzia

---

elkarhizketa ik **elkarrizketa**.

---

elkarjosi, elkarjos, elkarjosten du *ad* josi, elkarrekin josi.

Harrizko gotorlekuen kontua ere zuzen zela ikusi dut: ez dira justuki mendi adinako, baina bai gotor, egoki tankeratuak, doitasun zehatzez **elkarjosiriko** harlanduz eginak. Juan Garzia

---

elkarkari *izond* elkarrekikoa.

Korrelazio neuro-psikologikoen jokoak, proiekzio-sistema **elkarkari** eta kausaltasun-arlo zirkular legez ulertuta. Xabier Arregi

---

elkarketa **1** *iz* elkartzea.

Muskuluen eta hezurren **elkarketan** dago sekretua. Irene Aldasoro

Familia bien artean eztabaidatu eta negoziatu zituzten ezkonsariak eta **elkarketaren** gorabeherak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Izadia legezko sistema batean biltzen diren objektuen **elkarketa** den aldetik. Ibon Uribarri

Normalean automatikoki egiten da espaziontziaren eta ISS estazio orbitalaren **elkarketa**. Berria - Gaiak

Hiru kontzeptu horien **elkarketak** Lizarra-Garaziko Akordioaren garaira garamatza. adierazlearen eta adieraziaren arteko **elkarketa** "egite positiboa da". Berria - Euskal Herria

Izan ere, nik ez dut 12 zenbakia pentsatzen, ez 7aren errepresentazioan, ezta 5arenean ere, ezta bien **elkarketarenean** ere. Ibon Uribarri

Elkarketazko substantzia bakoitza substantzia askoren agregatua da. Ibon Uribarri

Identitatearen erregelaren arabera, beraz, ezin da aditu **elkarketazko** pentsamendu batean substantzia bakun bat aurresuposatzeko beharrezkotasuna. Ibon Uribarri

Eskuak, gizonarena eta Jaungoikoarena, arkatzezko marrazki soil ziren artean, etorri behar zuen **elkarketaren** zain bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Zergatik izan dira garai hori eta jakintza-arlo hori hain aproposak zientzialarien arteko halako **elkarketetarako**? Juan Garzia

2 (izenondoekin)

-Gartzela berria duk -azaldu dit osaba Felipek arrastiriko gure **elkarketa** bero mamitsuan-. Txillardegi

Azaroaren 3an preseski, Moriones eta Primo de Riveraren agindupean, tropa liberalen **elkarketa** munstroa antolatu zen Sesman. Txillardegi

Baina narrazioen arteko joskera eredugarria bada ere, are interesgarriagoak dira elementuen erabilera eta lengoaien arteko **elkarketa** aberasgarria. Berria - Kultura

Mugimenduaren muturreko araztasuna, eta leuntasun eta energiaren arteko **elkarketa** artegagarria. Berria - Kultura

Irudi akustikoaren bidalketa fisiologikoa gertatuko da, belarritik burmuinera; burmuinean, azkenik, irudi honen **elkarketa** psikikoa, dagokion kontzeptuarekin. Isabel Arrigain

Gero, aglutinazioari esker, sendotua gertatuko zen **elkarketa** psikologiko hori. Isabel Arrigain

Lehenengoan, argazkian dagoen informazioa jartzen da jokoan, zeinu objektiboak, berariaz kodetutako eremu bat [...]; bigarrenean zoria, **elkarketa** subjektiboak jartzen dira jokoan. Josu Zabaleta

Hortaz, esanahiaren eta formaren **elkarketa** bikoitza antola dezakegu. Isabel Arrigain

Oso minutu gutxitan, frantsesetik ingelesera pasatu zen eta ingelesetik, berriz, Salonika-ko espainieraren eta Makao-ko portugesaren halako **elkarketa** antzemangaitz batera. Juan Garzia

Krimentzat hartu behar al ditugu naturaren **elkarketa** gozoenak, berak bizikien aholkatzen eta agintzen dizkigunak? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi forma elkartzea, zerbait komun badutela sumatzea ez ezik, **elkarketa** hori eraentzen duten erlazioen izaera atzematea eta bereiztea ere bada. Isabel Arrigain

Norbaitek *marchons!* esaten badu, inskonszienteki **elkarketa** multzo askotarikoak gogoratzen ditu. Isabel Arrigain

Flexioa, garbi dago, hiztunen gogoan gertaturiko formen **elkarketa** mota tipikoa da. Isabel Arrigain

Altxatu zuen Moisesek Etxola eta kanpamentutik bereiz ezarri zuen, urrun samar, eta **'Elkarketa**-etxola' jarri zion izena. Jose Antonio Mujika

Elkarketa-etxolan, itun-kutxa estaltzen duen kortinaz kanpo. Elizen arteko biblia

Salomonek **Elkarketa** Etxolaren ondoan zegoen aldarera igo eta mila erre-opari eskaini zituen Jaunaren aurrean. Elizen arteko biblia

Jaunak agindu bezala, hartu zuen Moisesek **elkarketa**-etxolan, Jaunaren aurrean, zegoen makila. Elizen arteko biblia

Jaunak dei egin zion Moisesi eta honela mintzatu zitzaion **elkarketa**-etxolatik: [...]. Elizen arteko biblia

Jarri, gero, erre-oparien aldarea **elkarketa**-etxolako egoitzaren sarreran. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez da adimenez ulertzeko gai izango ez bada elementu-**elkarketa** honen bidez. Santiago Iruretagoiena

Halako egintzak oso bereak dituzte autistek, eta oso trebeak dira, halaber, kubo-**elkarketan** eta irudi ezkutuak aurkitzeko ariketetan bereziki. Xabier Olarra

Angiek, ia intuizioz, irudimenak sor ziezazkiokeen esanahi **elkarketak** ekiditeko, soinu-informazio hura blokeatu zuen buruan eta eguneko eginbeharretan kontzentratu zen. Iñaki Zabaleta

Gizona zenbat eta arruntago bihurtu, orduan eta gehiago jokatzen du hurbileko ideia-**elkarketen** arabera, urrunakogoak eta nahasiagoak alde batera utziz. Juan Martin Elexpuru

Hitz **elkarketak** batetik, eta aurrizki-atzizkiak gaineratzeak bestetik, ondorio berbera izan dezakete. Iñaki Arranz

Koskorrondoko hitzak eta *lo-korromorro* izen **elkarketak** bost *o* dituzte barnean. Iñaki Arranz

Poema honetako hitz guztietan, letania baten doinu monokordearekin gia soinu **elkarketa** pilatzen du. Iñaki Arranz

Euskarak CVCV egiturarako joera nabarmena badu ere, gertatzen direla trabari bilkurak morfema **elkarketaz**, mailegu bidez edo bestela. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko elkarketa (6); **dira elkarketa** (3); **elkarketa etxola** (20); **elkarketa etxola eta** (6); **elkarketa etxolako** (19); **elkarketa etxolako zerbitzua** (5); **elkarketa etxolan** (30); **elkarketa etxolan sartu** (3); **elkarketa etxolara** (17); **elkarketa etxolara eramango** (3); **elkarketa etxolaren** (68); **elkarketa etxolaren aurrean** (6); **elkarketa etxolaren aurrera** (3); **elkarketa etxolaren eta** (5); **elkarketa etxolaren sarreran** (23); **elkarketa etxolaren sarrerara** (13); **elkarketa hori** (6); **elkarketa horiek** (5); **eta elkarketa** (9); **eta elkarketaren** (3); **hitz elkarketa** (5); **lebitarrak elkarketa** (3); **odola elkarketa** (3); **zen elkarketa** (4); **zuen elkarketa** (3)

---

elkarkide *izond* kidekoa, elkarren kidekoa.

Larunbat aratsaldean, maiatzaren 14ean 3etarik 7ak arte eginen da merkatu "équitable" edo **elkarkide** deitzen dena, Herriko Etxeko elkarteen gelan. Herria

Ez nion haren besarkadari ordainik eman; eman banio, apika haren destinoa eta nirea zalapartatsu irtengo ziren bertan karriletatik, etorkizun **elkarkide** guztiz iragarrezin baterantz. Juan Garzia

Hedadura, denbora eta leku-mugimendua, izateari dagokionez hiru gauza **elkarkideak** direla erakusteko. Xabier Kintana

Elkarkide, baina ezberdin. Berria - Ekonomia

Dirua, azken batean, gauza bat baino ez da, eta gu, funtsean, **elkarkide** gara, ez gauzakide. Pako Aristi

---

elkarkidego *iz* elkarkidetasuna.

Arima espainolaren eta XVII. mendeko teatroaren **elkarkidegoa** erakusteko, [...]. Joxe Azurmendi

---

elkarkidetasun *iz* elkarkidea denaren nolakotasuna.

Eta gizatasuna izanik (hau da, tolerantzia, bakea, **elkarkidetasuna**) geure zerarik gorena, nola hilko ditut nire bila igoko liratekeen inurri dohakabeak? Karlos Linazasoro

Txaloak nahasten dira ukabil mehatxuzkoekin, hortz estutuak irribarre **elkarkidetasunezkoekin**. Karlos Linazasoro

Programaren xedea argi adierazi zuen, uste okerrerako biderik utzi gabe, esanez saio hura **elkarkidetasunezkoa** zela, anaien arteko solas bihozkor polit bat, gure esperientzia bortitzetatik lezio zorrotzak ikasteko aukera ezin hobea zela. Karlos Linazasoro

---

elkarkidetza 1 *iz* elkarkidetasuna.

Elkarlaguntza, **elkarkidetza** eta elkartasuna oinarri dutela, elkarrekiko errespetuan eta behetik gora eraiki beharrekoa. Berria - Euskal Herria

Arazo kurdua horietako bat da eta lau estatuen Turkia, Iran, Irak eta Siria lurralde batasuna hausten ez duen konponbidea behar da, beti ere, **elkarkidetza** eta berdintasuna bermatuko dituena. Berria - Mundua

Bigarren Elkartasun Asteak **elkarkidetza** sustatu nahi du munduan. Berria - Euskal Herria

Horrekin, filosofiaren eta teologiaren **elkarkidetzaren** inguruan aurretik egon zen jarrera baikorra zeharo hondatuta gelditu, eta nonahi giro susmagarria hedatu zen luzaro. Askoren artean

Erlijioen arteko **elkarkidetza**. Berria - Kultura

Idazleen arteko adiskidetasuna eta **elkarkidetza** eragitea. Berria - Kultura

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak aurkeztutako dokumentuak «bakearen, **elkarkidetzaren**, eta herritarren segurtasunaren kontra egindako atentatuaren erabateko gaitzespena» adierazten du. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzaren eta kontsulen ordezkaritzaren arteko **«elkarkidetza**, lankidetza eta adiskidetasun harremanak» sendotzearen alde agertu zen Venezuelako kontsul nagusia. Berria - Euskal Herria

Elkarkidetza : Kanpo zorra desagertzea, botikak merkatu, eta herri pobreetan teknologia berriak eta komunikaziorako tresnak zabaltzea. Berria - Gaiak

2 (izenondoekin)

Azken asteko protestek eragin duten krisiak kolokan jar dezake **elkarkidetza** ekonomikoa. Berria - Harian

EB eta estatu afrikarrak **Elkarkidetza** Ekonomikoaren Akordioaz (EAA) egiten ari diren negoziazioek afrikarrei egiten diete kalte, Europarekiko menpekotasuna indartzen dutelakoBizitzaren eta heriotzaren arteko **elkarkidetza** bitxia. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Polizia eta paramilitarren arteko **elkarkidetza** salaketa «frogatzeko edo gezurtatzeko» auzitegiak «bitartekorik ez» dituela esan zuen atzo epaileak. Berria - Mundua

Baionako Croises Saint-Andre taldearekin **elkarkidetza** hitzarmenda lortu du Athleticek. Berria - Kirola

Bere gogoz, nazioartearen begiradapean eta **elkarkidetza** prozesu garden batean suntsipen handiko armen programak desegingo dituzten herrialdeen artean lehena da Libia. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horien artean, kultura, gizarte **elkarkidetza** , hezkuntza, gizarte gaiak, enplegua, osasuna, etxebizitza eta Justiziarako ekintza bideak ezarri ditu. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arteko elkarkidetza (4); **elkarkidetza eta** (4); **eta elkarkidetza** (5)

---

elkarkor *izond* elkartzeko joera duena.

Hori ideien eta kontzeptuen arteko loturak nabarmentzen dituen teknika **elkarkorra** da eta, gehienetan, bera da sormenaren iturria. Askoren artean

---

elkarkuntza *iz* elkartzea.

Honetan datza arrazoimenaren benetako boterea: agerian jarri eta bere zabalera guztian baliaraztea, bai ideien eta, bai egintzen **elkarkuntzak** , beren baitan adigarri izan litezkeela. Piarres Xarriton

Uste baduzu suaren eta lurraren gorputza eta airearen aurak eta uraren jariotasuna **elkarkuntzan** euren izaera batere ez aldatzeko moduan batzen direla, ezingo zaizu haietatik ezein gauza sortu, ez animadunik ez zuhaitza bezalako gorputz animagaberik. Xabier Amuriza

Itzulera hau amaigabea denez gero, orduan bera heltzen den puntuko osakide (zati) guztiak agregatu gisa barnebilduak daude osoki jakinean, baina ez zatiketaren ilara osoa, hurrenez hurren amaigabea dena eta inoiz ez osoa, eta ondorioz, kopuru amaigabea ere ez dena, eta ezein **elkarkuntza** aurkeztu ezin duena osoki batean. Ibon Uribarri

---

elkarlaguntza **1** *iz* laguntza, elkarrekiko laguntza.

Elkarlaguntza , elkarkidetza eta elkartasuna oinarri dutela, elkarrekiko errespetuan. Berria - Euskal Herria

ELGE **Elkarlaguntza** eta Garapenerako Erakundea. Koro Navarro

Biek esan zuten «terrorismo islamikoari» aurre egiteko nazioarteko **elkarlaguntza** eta informazio trukaketa beharrezkoak direla. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Espainiak eta Gibraltarrek **elkarlaguntza** harremana mantentzea ez dugu baztertzen. Berria - Mundua

Segurtasunak, AEBekin dugun **elkarlaguntzaren** oinarria izan behar du. Berria - Mundua

Elkarlaguntza -plangintza ekonomikorako aholkulari gisa. Iban Zaldua

Erdi Aroan zehar Gaztelako koroarekin **elkarlaguntza** eta integrazio prozesu ezberdin eta aberasgarriak garatzeko. Iban Zaldua

---

elkarlan *(1.742 agerraldi, 39 liburu eta 1.1.29 artikulutan; ETCn 28.784 agerraldi)* **1** *iz* elkarrekin eginiko lana.

Gauzak umorez hartzen ere erakutsi digu **elkarlan** honek. Jokin Urain

Elkarlan horrek arraun eskola eman zuen. Berria - Kirola

Estatuek mundu mailako elkartasun espirituarekin egin beharko dute **elkarlana** , Lurraren osasuna eta ekosistemaren osotasuna kontserbatzeko, babesteko eta berrezartzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Elkarlanaren garrantzia argi uzten du Australopithecus eta Paranthropus familien parabolak. Berria - Gaiak

Elkarlaneko binakako saio hauetan bertso bakoitzak ez du bestelako bertso-jardunetan duen adinako garrantzirik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sintesi Modernoak **elkarlanerako** oinarriak finkatu zituen eta Biologiaren Filosofiari ere aurrera egiteko ikuspegi bat eskaini zion. Askoren artean

Elkarlanerako deia itxurakeria huts da, gu beti agertu gara eskuz esku jarduteko prest. Berria - Ekonomia

Gipuzkoako Foru Aldundiak 248.842 euroko dirulaguntza emango dio aurten Aranzadi Zientzia Elkarteari, iazko kopuruaren bikoitza, erakundeok sinatu berri duten **elkarlanerako** hitzarmenari esker. Berria - Kultura

Unibertsitatea, oro har, ez dago han bezain inplikatua bere eguneroko jardueran enpresa pribatuekin **elkarlana** egiten. Pello Salaburu

Inork bere arropa garbitu nahi zuenean, bere kasa joan eta ekarriko zuen ura, eta garbituko zituen garbitu beharrekoak; hor ez zegoen **elkarlanik** . Xabier Mendiguren Elizegi

Ereduzkotasun historikoa ere kultura ezberdinen arteko **elkarlan** tolerante, betekorrean aurkezten zuen. Joxe Azurmendi

Elkarlan bat izan da, zinez goresgarria, rugbilariak berak ere partzuer, euskara omenduz denbora berean. Herria

Elkarlana eskatu eta eskaini du Perez Iglesiasek kargua hartzean. Berria - Euskal Herria

Nazioetako sindikatuen **elkarlana** bultzatzen. Berria - Ekonomia

Aralar eta biok diogu koalizioa ongi gauzatu eta **elkarlana** sendotu egin behar dela. Berria - Euskal Herria

Sail hortan, abertzale eta ezkertiarren arteko **elkarlana** behar dela sustatu geroari buruz, hori ere azpimarratu da. Berria - Euskal Herria

Euskadi ondo egituratutako herrialdea da, baina gizarte eragileen arteko **elkarlana** suspertu beharko dugu egungo ongizate mailari eusteko. Berria - Ekonomia

Paisley, ipar-hego **elkarlanaren** alde. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hots, **elkarlan** harrigarria darama Afrikakolorek. Herria

ELA eta LABeko 4.000 militantek manifestazioa egin zuten atzo Bilbon, hamar urteko **elkarlan** sindikalaren gorazarrez. Berria - Ekonomia

PPk ez beste alderdiek babestuko dute gaur **elkarlan** poliziala indartzea jasotzen duen proposamena. Berria - Harian

Hiru lehentasun estrategiko ditugu eta, horiek, **elkarlan** zorrotza eskatzen dute. Berria - Ekonomia

Elkarlan luze baten lehenengo urratsa izan daiteke. Berria - Kirola

Ilargi elkarteko gaztetxoek agertuko dute **elkarlan** berezi bat, Ziburuko xoko pollitenak harturik gai bezala. Herria

Elkarlan berri horren beste aurpegia, urteko egitarau kultural komuna da. Berria - Kultura

Azpimarratu du zoin beharrezkoa den muga zaharraren gainetik **elkarlan** sakon baten gero eta gehiago sustatzea. Herria

Geroxeago, **elkarlan** zabal batean sartuko da hiru diska batera grabatzen euskal kantari ezagutuekin: Amaia Zubiria, Mikel Laboa, Kepa Junkerarekin, eta Andra Mari abesbatzarekin. Herria

Genin jaunak, herriko auzapezak goretsi eta goresmenak ekarri ditu **elkarlan** kartsu horri. Herria

«Indarkeria saihesteko» bide berriak topatzea eta ikerkuntzan **elkarlan** estuagoa lortzea izango ditu helburutzat. Berria - Harian

Huerga eta Rourerekin **elkarlan** estuan, Lluis Arcarazo gidoia lantzen ari da egun. Berria - Kultura

Bada hor **elkarlan** nasai bat ahal bezen plantan akulatu behar dena. Herria

Ikusi dut han, hemengo MJC gisako elkartetxe batzuetan, jende heldua sekulako **elkarlana** egiten haurrekin. Herria

Indarkeriarekin amaitzeko bide bakarra, nazioarteko **elkarlana** zela ere ebatzi zuten goi bileran parte hartu zuten buruzagi eta ordezkariek. Berria - Harian

Erakundearekiko **elkarlana** berriz aztertuko duela ohartarazi du Ahmadinejadek. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Biek gogoan zutela mugaren gainetik harreman askoren sustatzea eta **elkarlan** sail bati funtsez plantatzea. Herria

Aldarteak, neure ustez, dialektika gehiago eskatzen du, abertzaletasunaren korronte nagusien kultur politikoen funtsak zalantzan jarriz eta **elkarlan** guneak bilatuz. Berria - Euskal Herria

Elkarlan akordio baten ondorioz, Euskadiren biharko partida babestuko du ESAITek. Berria - Kirola

Adituen Batzordeak **elkarlan** faltaren bi adibide aipatu ditu. Berria - Harian

Gerra ondorengo lehen **elkarlan** saioa izan zen hura. Berria - Kultura

Atzo, Labriten, **elkarlan** erakustaldia egin zieten Titin III.ari eta Pascuali. Berria - Kirola

Elkarlan prozesua mantsoa izan zen, abiapuntuan desadostasun sakonak zeudelako. Berria - Ekonomia

Egia esan, Brasilekin **elkarlan** baldintza aproposak daude, baita Txilerekin ere. Berria - Mundua

«Elkarlan dinamika iraunkorra» abiatu nahi duela azaldu du Iruñean. Berria - Harian

Udalbide **elkarlan** elkarteak 14 000 euroko hitzarmena izenpetu du Miarritzeko "Ohakoa" euskal haurtzaindegiarekin joan den osteguanean. Herria

Euskal herriko berrehun herriko etxek sortua duten "Udalbide" **elkarlan** kutxak bi milioi euroko buxeta du aurten. Herria

4 ***elkarlanean***

Ahalegin saiatua, etsipena eta halabeharra ibiliak ziren **elkarlanean** haien idazketan. Juan Garzia

Liburu eta artikulu ugari argitaratu du, berak bakarrik nahiz **elkarlanean**. Horrela lortzen dira emaitzak, **elkarlanean**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Testua Frantziskok eratu zuen, anai talde txiki batekin **elkarlanean**. Askoren artean

Bi agintariek **elkarlanean** aritzeko konpromisoa hartu zuten. Berria - Mundua

Azken hilabete haietan **elkarlanean** aritu behar izan zuen alemaniar agente anitzekin, SD informazio zerbitzu nazikoak gehienak. Alberto Ladron Arana

Elkarlanean aritzeko modua biontzat izan da akuilagarri. Jokin Urain

Bi zentroek **elkarlanean** jardungo dute ikerketetan eta ikertzaileen prestakuntzan. Berria - Euskal Herria

Penagarri zitzaion **elkarlanean** hain ederki jardunak ziren iker-taldeak horrela tupustean banantzea. Juan Garzia

Belarriek, garunarekin **elkarlanean**, goi-fidelitateko soinu estereofonikoak eskaintzen dizkigute. Irene Aldasoro

Ahalegin saiatua, etsipena eta halabeharra ibiliak ziren **elkarlanean** haien idazketan. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean elkarlan (3); **arteko elkarlan** (13); **du elkarlan** (7); **dute elkarlan** (3); **elkarlan bat** (9); **elkarlan berri** (4); **elkarlan dinamika** (3); **elkarlan estuan** (5); **elkarlan eta** (6); **elkarlan gehiago** (4); **elkarlan hori** (21); **elkarlan horrek** (9); **elkarlan horren** (8); **elkarlan horri** (3); **elkarlan nuklearrerako** (3); **eta elkarlan** (12); **udalbide elkarlan** (7)

abertzaleen arteko elkarlana (17); **administrazioen arteko elkarlana** (3); **alderdien arteko elkarlana** (4); **arloko elkarlana** (3); **artean elkarlana** (5); **arteko elkarlana** (133); **arteko elkarlana aldarrikatu** (3); **arteko elkarlana bultzatu** (5); **arteko elkarlana bultzatuko** (5); **arteko elkarlana bultzatzea** (6); **arteko elkarlana bultzatzeko** (4); **arteko elkarlana ere** (6); **arteko elkarlana eta** (7); **arteko elkarlana ezinbestekoa** (5); **arteko elkarlana sustatu** (4); **arteko elkarlana sustatzea** (3); **borrokan elkarlana** (4); **den elkarlana** (3); **denen arteko elkarlana** (5); **duten elkarlana** (4)

elkarlana aldarrikatu (6); **elkarlana behar** (9); **elkarlana behar dela** (4); **elkarlana beharrezkoa** (6); **elkarlana beharrezkoa dela** (4); **elkarlana bertan** (3); **elkarlana bertan behera** (3); **elkarlana bultzatu** (19); **elkarlana bultzatu behar** (7); **elkarlana bultzatu nahi** (5); **elkarlana bultzatuko** (14); **elkarlana bultzatuko duela** (3); **elkarlana bultzatuko dutela** (3); **elkarlana bultzatzea** (21); **elkarlana bultzatzeko** (15); **elkarlana bultzatzen** (6); **elkarlana egin** (6); **elkarlana egin beharko** (3); **elkarlana ere** (8); **elkarlana eskaini** (4); **elkarlana eskatu** (6); **elkarlana eskatu zuen** (3); **elkarlana eskatzen** (4); **elkarlana eta** (30); **elkarlana ez** (4); **elkarlana ezinbestekoa** (15); **elkarlana ezinbestekoa da** (3); **elkarlana ezinbestekoa dela** (7); **elkarlana ezinbestekoa izango** (4); **elkarlana hasi** (4); **elkarlana hobetzea** (3); **elkarlana indartzea** (3); **elkarlana izan** (5); **elkarlana osatzen** (3); **elkarlana osatzen duten** (3); **elkarlana posible** (3); **elkarlana sendotu** (5); **elkarlana sendotzeko** (6); **elkarlana sendotzeko beharra** (4); **elkarlana sustatu** (12); **elkarlana sustatu behar** (5); **elkarlana sustatzea** (4); **elkarlana sustatzeko** (10); **elkarlana sustatzeko asmoz** (3)

eragileekin elkarlana (3); **eragileen arteko elkarlana** (3); **erakundeen arteko elkarlana** (5); **eta elkarlana** (49); **eta elkarlana bultzatu** (3); **eta elkarlana bultzatzea** (4); **eta elkarlana sustatzeko** (5); **ezkertiarren arteko elkarlana** (3); **guztien arteko elkarlana** (6); **guztien elkarlana** (4); **harremana eta elkarlana** (3); **herrialdeen arteko elkarlana** (4); **herrien arteko elkarlana** (8); **indarren arteko elkarlana** (3); **komunikazioa eta elkarlana** (4); **lurraldeen arteko elkarlana** (3); **nazioarteko elkarlana** (5); **p elkarlana** (3); **polizien arteko elkarlana** (3); **sozialen arteko elkarlana** (3); **zuen elkarlana** (3)

arteko elkarlanak (7); **arteko elkarlanarekin** (3); **arteko elkarlanaren** (17); **arteko elkarlanaren alde** (4); **arteko elkarlanaren ondorioz** (3); **arteko elkarlanari** (4); **elkarlanaren alde** (8); **elkarlanaren bitartez** (4); **elkarlanaren fruitua** (3); **elkarlanaren garrantzia** (5); **elkarlanaren ondorioz** (5); **elkarlanari buruzko** (3); **eta elkarlanaren** (5)

argitaletxearekin elkarlanean (3); **ari dira elkarlanean** (3); **ariko dira elkarlanean** (3); **arteko elkarlanean** (4); **audenekin elkarlanean** (3); **auzitegiarekin elkarlanean** (4); **baina elkarlanean** (3); **batekin elkarlanean** (8); **batzordearekin elkarlanean** (3); **batzuekin elkarlanean** (5); **da elkarlanean** (5); **dira elkarlanean** (8); **du elkarlanean** (4)

elkarlanean antolatu (10); **elkarlanean antolatu du** (4); **elkarlanean antolatutako** (4); **elkarlanean argitaletxeak** (12); **elkarlanean ari** (30); **elkarlanean ari da** (6); **elkarlanean ari dira** (11); **elkarlanean ariko** (8); **elkarlanean ariko dira** (3); **elkarlanean aritu** (25); **elkarlanean aritu behar** (5); **elkarlanean aritu da** (3); **elkarlanean arituko** (12); **elkarlanean arituko da** (5); **elkarlanean arituko dira** (4); **elkarlanean aritzea** (28); **elkarlanean aritzearen** (3); **elkarlanean aritzeko** (86); **elkarlanean aritzeko aukera** (5); **elkarlanean aritzeko beharra** (3); **elkarlanean aritzeko borondatea** (4); **elkarlanean aritzeko eskatu** (3); **elkarlanean aritzeko eta** (3); **elkarlanean aritzeko konpromisoa** (5); **elkarlanean aritzeko prest** (15); **elkarlanean aritzen** (3); **elkarlanean egin** (10); **elkarlanean egin dute** (4); **elkarlanean egindako** (12); **elkarlanean eginiko** (5); **elkarlanean ek** (4); **elkarlanean eta** (9); **elkarlanean fundazioa** (3); **elkarlanean fundazioak** (8); **elkarlanean hainbat** (4); **elkarlanean hasi** (5); **elkarlanean idatzi** (3); **elkarlanean ikastolen** (3); **elkarlanean ikastolen elkartea** (3); **elkarlanean jardun** (10); **elkarlanean jardun behar** (4); **elkarlanean jardungo** (4); **elkarlanean jarduteko** (9); **elkarlanean jarraituko** (3); **elkarlanean jarraitzeko** (8); **elkarlanean kaleratu** (3); **elkarlanean lan** (3); **elkarlanean sortu** (4)

elkartearekin elkarlanean (8); **enpresekin elkarlanean** (4); **eragileekin elkarlanean** (8); **erakundeekin elkarlanean** (8); **erakunderekin elkarlanean** (3); **ere elkarlanean** (5); **espainiako gobernuarekin elkarlanean** (4); **eta elkarlanean** (30); **eta elkarlanean aritzeko** (5); **euskalgintza elkarlanean** (17); **euskalgintza elkarlanean fundazioa** (3); **euskalgintza elkarlanean fundazioak** (8); **fundazioarekin elkarlanean** (4); **gobernuarekin elkarlanean** (9); **guggenheim museoarekin elkarlanean** (3); **guztiekin elkarlanean** (4); **haiekin elkarlanean** (4); **horiek elkarlanean** (4); **jaurlaritzarekin elkarlanean** (3); **justiziarekin elkarlanean** (4); **museoarekin elkarlanean** (5); **psoerekin elkarlanean** (3); **psoerekin elkarlanean aritzeko** (3); **sailarekin elkarlanean** (4); **taldearekin elkarlanean** (4); **udalarekin elkarlanean** (4); **zentroarekin elkarlanean** (4)

abertzaleen arteko elkarlanerako (5); **arteko elkarlanerako** (8); **elkarlaneko kooperatiben** (4); **elkarlanerako akordio** (3); **elkarlanerako akordio bat** (3); **elkarlanerako aukera** (8); **elkarlanerako bideak** (3); **elkarlanerako borondatea** (7); **elkarlanerako deia** (13); **elkarlanerako deia egin** (8); **elkarlanerako esparru** (3); **elkarlanerako esparruak** (3); **elkarlanerako gogoa** (4); **elkarlanerako gune** (3); **elkarlanerako hitzarmena** (8); **elkarlanerako hitzarmena sinatu** (5); **elkarlanik ez** (4); **ere elkarlanerako** (3); **eta elkarlanerako** (18); **gaindiko elkarlanerako** (3); **mugaz gaindiko elkarlanerako** (3)

---

elkarleku *iz* elkartzeko lekua.

Joan den mendean, aurrekoan bezalaxe, topagune ziren erromeriak, baserri-auzo-herri desberdinetan bizi ziren euskaldunen **elkarleku**. Berria - Kultura

Eliz teilatua ohiko **elkarleku** zuten usoak beldurrak airean ibiltzen ziren, saldo osoa hegaldatzen baitzen zalaparta bizian belatzak gerturatu orduko. Imanol Zurutuza

Baina plazan, **elkarlekuak** zituzten Madonna di Rosa eta Prodoloneko herrietatik hiru milatik gora manifestalariak iritsi aurretik, beste edozein udazken egun bezalaxe zela ematen zuen. Josu Zabaleta

-Hauxe dok, ba, gure **elkarlekua** -Anderrek-. Txillardegi

---

elkarlotu, elkarlot, elkarlotzen **1** da/du *ad* lotu, elkarrekin lotu.

Azkenik, guri gogor eta trinko iruditzen zaizkigunek euren artean gakotuago egon behar dute, adarkadura sarriz **elkarlotzen** direla. Xabier Amuriza

Bi-biak, goiko eta beheko fakultateak, sakonki **elkarloturik** aurkitzen dira. Joan Mari Lekuona

Orduan ikusiko du zeinen ongi eraikia zegoen gurdia eta zeinen egoki **elkarlotuak** bera galbidera zeramatzaten eta hainbat eragozten zuten atal haiek. Imanol Unzurrunzaga

Ekonomiaren zikloekin **elkarloturik** doa garapen teknologikoa. Berria - Ekonomia

Hain dago egon ere **elkarloturik** zain, haragi, nerbio eta hezurretan, ezen hortzek ere sentimena baitaukate. Xabier Amuriza

Gainerako hemeretzi kiloak, gakoak eta zutabeak **elkarlotzen** zituzten ziriak egin eta zutabe-gainak estaltzeko erabili ziren. Elizen arteko biblia

Aldaketa guztiak kausa eta efektua **elkarlotzen** dituen legearen arabera gertatzen dira. Ibon Uribarri

Ezerk ez ditu hilketak **elkarlotzen**, elkarrengandik bereizten, pista baliagarririk ematen: ez biografiak, ez hamaseiren bizitzetatik inoiz pasatu zen gizon edo emakumerik, denak **elkarlotuko** zituenik. Jon Alonso

Zerizan bakoitzean bere osagaiak (essentialia) materia dira; hauek gauza batean **elkarlotzen** diren era forma esentziala da. Ibon Uribarri

Garapenaren eta bilakaeraren adigaiak: hauek uzten digute sakabanatutako gertaera batzuen segida berriro **elkarlotzen**, hastapen antolatzaile bakar eta berberarekin erlazionatzen, bera bizitzaren ahalmen eredugarriaren menpean ipintzen. Xabier Arregi

Saramagoren nobela bakoitza autonomoa da, gainerakoekin zerikusirik ez duena, itxuraz, eta hala ere, hari fin batek **elkarlotzen** ditu guztiak. Jon Alonso

Ez dakit non irakurria dudan, itsas ertzean bizi den jendeak era berezi batez **elkarlotzen** dituela errealitatea eta fantasia. Anjel Lertxundi

2 (era burutu izenondo gisa)

Unamuno-ren jarrera berria euskarari buruz guztiz ulertzeko, historiaren pentsamendu berriaren barruan ulertu behar da hori, historiak haren diskurtsoan dauzkan lau maila **elkarlotuetan**: historia pertsonala eta unibertsala, Espainiako historia eta Euskal Herrikoa. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
elkarlotzen dituen (3); **elkarlotzen duen** (3); **elkarlotzen duena** (3)

---

elkarlotura *iz* lotura, elkarrekiko lotura.

Zer esan, gainontzeko harremanei buruz, neba-arrebak, aita-amaginarrebak eta suhi-errainak, eta hainbat ahaide eta kideren arteko **elkarloturari** buruz. Imanol Unzurrunzaga

Adiskidantza deseginez gero, ezin iraungo dute ariman ezkontzaren loturek, ez ahaidegoaren edota kidegoaren lokarriek, hauetan ere lagunarteko **elkarlotura** baitago. Imanol Unzurrunzaga

Errepresentazio soil gisa ahalmen elkarlotzaileak ezartzen dituen **elkarloturaren** legeen menpean baino ez daude. Ibon Uribarri

Esperientzia, hautemapenen beharrezko **elkarloturaren** errepresentazioaren bidez baino ez da ahalgarria. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren postulatu logikoa da adigai batek bere baldintzekin duen **elkarlotura**, alegia, jadanik adigaiari atxikitzen zaion **elkarloturari** adimenaren bitartez segitzea eta ahalbait urrun jarraitzea. Ibon Uribarri

Hala eta guztiz ere, biak bereizten ditut bien arteko **elkarlotura** dinamikoaren denbora-hartuemanaren bitartez. Ibon Uribarri

Agerpenen kausa-**elkarloturaren** oinarri-esakunea beroien segidara zedarriztatuta dago gure formulan. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
beharrezko elkarlotura (3); **duen elkarlotura** (5); **elkarlotura da** (3); **elkarlotura hori** (3); **elkarlotura oro** (4); **eta elkarlotura** (4)

---

elkarlotzaile *izond* elkarlotzen dituena.

Baina errepresentazio soil gisa ahalmen **elkarlotzaileak** ezartzen dituen elkarloturaren legeen menpean baino ez daude. Ibon Uribarri

Objektuen existentziaren determinazioa oro har hauek denboran lotuz baino ezin gerta daiteke, eta beraz, apriorizko adigai **elkarlotzaileen** bidez besterik ez. Ibon Uribarri

---

elkarlotze *iz* lotzea, elkarrekin lotzea.

Adigai hauek judizioetan **elkarlotzea** gure errepresentazioen multzoan ordena eta legezko batasuna sortzeko eta horrela errepresentazio subjektibo soilak direnetatik abiatuta esperientzia objektiboa eta edonorentzat baliogarriak diren esperientziaren judizioak sortzeko baliagarriak dira. Ibon Uribarri

---

elkarmendekotasun *iz* elkarrekiko mendekotasuna.

Ekologiaren ikuspegirako ekosistemen eta sistema sozio-ekonomikoaren artean erabateko lotura dago, hots, erabateko **elkarmendekotasuna**. Iñaki Heras

---

elkarmugida *iz* elkarrekiko mugida.

Gertatzen da arima zati bat handik jaurtia dela eta beste bat barrurantz ezkutatzen dela, beste zati batek, berriz, lohadarretan zabaldurik, ezin duela besteekin baturik jarraitu ez **elkarmugidarik** burutu. Xabier Amuriza

---

elkarneurgaitz *izond* elkarrekiko neurgaitza.

Entitate itxiak, **elkarneurgaitzak** dira, ala nolabait aldera daitezke euren arteko elkarneurgaiztasun partziala onartu arren? Askoren artean

Ezen paradigmen terminoen esanahia desberdina izanik, termino bat bera izan arren paradigma bietan, nola alderatu paradigmen alde desberdinak, are **elkarneurgaitzagoak** direnean: paradigmen arteko estandarrak, erregelak, arauak edo balioak. Askoren artean

---

elkarneurgaiztasun *iz* beste batetiko elkarneurgaitza denaren nolakotasuna.

Entitate itxiak, elkarneurgaitzak dira, ala nolabait aldera daitezke euren arteko **elkarneurgaiztasun** partziala onartu arren? Askoren artean

Azken batean, berriro ere **elkarneurgaiztasunaren** arazoarekin egiten dugu topo, baina orain zientziaren dinamikaren azterketarako formulatuta. Askoren artean

Elkarneurgaiztasun desberdinen (metodologikoa eta semantikoa, batez ere) arazoa. Askoren artean

---

elkarraldi *iz* elkarrekiko egonaldia.

Hiru egun lehenago Azken Portun izandako **elkarraldia** zen planifikatutako pentsamenduak zurrupatzen zizkiona. Josu Landa

Elkarraldiaren tentsioa areagotzeko, baiki, Legardek enkontru gaiztoak izan daitezkeen leku bat aukeratu du: Les Charmilles edaritegia. Javi Cillero

---

elkarrarazi, elkarraraz, elkarrarazten du *ad* elkartzera behartu.

Lo-tokien aitzineko ordokian **elkarrarazi** zaituztete. Xabier Montoia

Fusioan, ordea, energia askatzen da nukleoak **elkarrarazten** direnean. Berria - Gaiak

---

elkarregintza *iz* elkarrekintza.

Giza agenteen eta ereduek errepresentatzen dituzten sistema errealen arteko **elkarregintza** kognitiboen izaera aztertuz. Askoren artean

---

elkarrekikotasun 1 *iz* elkarrekikoa denaren nolakotasuna.

Elkarrekikotasuna edo hark niregatik egin duen hori berarengatik egiteko borondatea izatea. Berria - Gaiak

Elkarrekikotasuna gizarte primitibo askoren ezaugarria da: jarduera ekonomikoak pertsona batek beste pertsona bati egiten dizkion emaitza eta ordain-emaitzen kate batean txertatzen direla esan nahi du. Koro Navarro

Antzinaroko lehen inperioak eta haien aurreko gizarte primitiboak, oro har, merkatua ezagutzen zuten arren, bestelako oinarrien arabera zeuden antolatuak, **elkarrekikotasunean**, birbanaketan eta autarkian hain zuzen ere.Arlo zibilean nahiz merkataritzakoan, kontratuen onustea, **elkarrekikotasuna** eta berdintasuna dira beharren. Koro Navarro

Adimenduaren eta borondatearen arteko **elkarrekikotasuna**, subjektu bihurtutako egiaren aldeko erradikaltasuna, horrek egin zuen jatorrizko ETA hura hain iraultzailea. Joseba Zulaika

Horretarako, baina, **elkarrekikotasunez** jokatu, eta preso sahararrak askatzeko eskatu dio Marokori. Berria - Harian

Elkarrekikotasunezko erlazio hori etnismoaren eta hizkuntzaren artean gauzatzen da, hain zuzen: gizarte lotura dela eta, erkidego linguistikoa sortzen da, eta agian, ezaugarri erkide batzuk hizkuntza osoaren gainean hedatzen dira. Isabel Arrigain

Antzezlan bateko edozerk eragin ziezaiokeen negarra: janzki ñimiñoek, maitasun bateraezinak nahiz **elkarrekikotasunezkoak**, limurkeriak, araztasunak, otseinen leialtasunak, ezkontzek, triangeluek. Mirentxu Larrañaga

2 (izenlagunekin)

Lehen begiratuan argi nabari da ezinezkoa dela Haren eta Beraren sorkarien artean inolako erlaziorik izatea, zeren bi egokitzeren propietateetako bat erabateko **elkarrekikotasuna** baita. Xabier Kintana

Oro har, ez dago puntuz puntuko **elkarrekikotasunik**, oso bestela, zeharbidezko **elkarrekikotasunen** ugaritasun nabari bat baizik: ikusmen-sistemak ez du aski informazioa kopiatzea, maila bakoitzean erabat tratatzen du berriro informazio hori. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Ez da denboraz kanpoko forma izango, baizik eta denborazko sail askoren arteko **elkarrekikotasun** eskema. Xabier Arregi

---

elkarrekin, elkarrekin, elkarrekiten du *ad* elkarri ekin.

Konplexutasun-maila altuago batean, proteinek euren artean **elkarrekiten** dute, sare konplexuak eratuz. Berria - Gaiak

---

elkarrekintza 1 *iz* elkarrekiko ekintza.

Argi eta garbi erakutsi du ekosistemen eta giza komunitatearen arteko **elkarrekintzak** arazo bat eragiten duela giza harremanen esparruan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Botere publikoen eta gizarte eragileen arteko **elkarrekintza** eta lankidetza. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Proteinen arteko **elkarrekintza** eragozteko moduak. Berria - Gaiak

Horretarako hiru belaunaldiren arteko **elkarrekintza** eskatzen zen. Iñaki Mendiguren

Quarken **elkarrekintzetan** agertzen den askatasun asintotikoa. Berria - Gaiak

Tximinoen kasuan, adimena erabili behar dut haien **elkarrekintzez** jabetzeko. Xabier Olarra

Beharrezkoa zaie agerpenean substantzia guztiei, aldiberekoak diren heinean, elkarrekin izatea **elkarrekintzazko** komunitate osatu batean. Ibon Uribarri

Aldiberekotasunaren oinarri-esakunea **elkarrekintzaren** legearen arabera. Ibon Uribarri

Substantzia guztiak, espazioan aldi berean hauteman ditzakegun heinean, **elkarrekintza** osoan aurkitzen dira. Ibon Uribarri

Kanalak bilatu behar dira, herritarrek aukera izan dezaten konplexutasun-maila desberdinetan **elkarrekintzan** jardun eta aldaketak eragiteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Jardunaldiek hirira ireki eta publikoarekin **elkarrekintzan** aritzeko espazio berriak bilatu nahi ditugu. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Konputazio Afektiboa eta **Elkarrekintza** Adimentsuari buruzko lehen nazioarteko kongresua. Berria - Gaiak

Ikuspegi hau nahiko murrizgarria da, uste baitu unibertso fisikoa azal daitekeela soilik oinarrizko osagaien **elkarrekintza** material eta energiazkoei erreparatuz. Askoren artean

Bai inguruko gorputzen kausazko **elkarrekintza** eraentzen duen legeria orokorra, eta bai horien izaera. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan)

Politika global bat ari da sortzen, **elkarrekintza**-sare amaigabeez horniturik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

· Gaixotasunak sailkatzeko hastapena alde batera uztea gorputz **elkarrekintza** hobesteko. Xabier Arregi

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Gizarte-**elkarrekintza** prozesu baten emaitza gisa. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arteko elkarrekintza** (9)

---

elkarrekintzaile *izond* elkarrekintzan diharduena.

Eztabaida horren inguruan sortu zen eboluzioa azaltzeko bi izaki teorikoen arteko bereizketa: erreplikatzailea, bere burua kopiatzeko gauza den izakia adierazteko, eta **elkarrekintzailea**, bere ingurunean bizi eta hautespena jasango duen entitatea adierazteko. Askoren artean

---

elkarrekite *iz* elkarri ekitea.

Proteinen arteko **elkarrekitea** ulertzea litzateke hurrengo pausua. Berria - Gaiak

---

elkarrekitsu *izond* **

Bi Espainiok, izan ere, elkarren txit arerioak alderditarki, arima edo jeinu espainolaren patriotismoan **elkarrekitsuak** dira biak, are zein baino zeinago haren ardura santuan. Joxe Azurmendi

---

elkarrenganatu,elkarrengana(tu), elkarrenganatzen da/du *ad* elkarganatu, elkarretaratu.

Gizonak eskuak oratu eta musu eman zion, emakumeak keinua errepikatu zuen, gorputzaren uhinezko mugimenduaz **elkarrenganatu** ziren. Jon Alonso

Emakumea erabat maitemindurik zeukan, ikasleak zioenez; baina bazen **elkarrenganatzea** eragozten zien zailtasun eta oztopo sail bat. jantokian **elkarrenganatu** behar izan genuen denok, mahai-banaketarako ilaran jarrita. Josu Zabaleta

Erromatarrei zieten beldurrak **elkarrenganatu** zituen; gizon bakoitza, nahastutako nazio haietan, bere nazioko ohitura eta usadioen arabera epaitu behar zen. Iñaki Iñurrieta

Nazio kapitalista aurreratuek -sobietar mehatxuak eta estatubatuar aterki nuklearrak **elkarrenganaturik**-, diruaren, finantzen eta merkataritzaren alorrean Estatu Batuek ezarritako arauak onartu zituzten. Koro Navarro

Bi aldeek elkar ezagutzeko eta dituzten balioak **elkarrenganatzeko** gertatu beharko liratekeen kultura aldaketak bultzatu beharko lirateke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

V4 zelula horiek, hala ere, V1 zelulen bulkadak jasaten zituzten, V2 izeneko tarteko egitura baten bitartez **elkarrenganatuz**. Xabier Olarra

---

elkarreragile *izond* elkarrekiko eragina sortzen duena.

Aipatu nahi duzuna iturri **elkarreragilea** bada (adibidez, liburu baten egileak posta elektronikoz bidali dizun iruzkin bat), sistema arruntena hau da: [...]. Askoren artean

Nola argitu behagarritasuna, horrentzat beharrezkoa den behaturiko objektuak, behatzaileak eta marko teorikoak (edo kontzeptualak) osatzen duten marko **elkarreragilean** sortzen den informazio-fluxuaren analisian? Askoren artean

Instalazio **elkarreragileek** biribiltzen dute teknologia berrien erakustaldia. Bereizkuntza handi bat egiten du hiru teoria hauen artean: teoria "estrinsekoa" (atsegina ez du pertzepzioak berak eragiten, beste zerbaitek baizik), teoria "intrinsekoa" (atseginak badu lotura bat irudiaren beraren ezaugarri batzuekin, haren proportzioen harmoniarekin, adibidez), eta teoria **"elkarreragilea"** (irudiaren eta pertsonaren edo egoeraren ezaugarrien arteko elkarreraginarekin du lotura atseginak). Berria - Kultura

Azken kasu horietan pentsa dezakegu, seguruenik, genetikak aldagai **elkarreragile** bezala jardun izan duela. Berria - Gaiak

Teknologia hori **elkarreragilea** da, informazioen joan-etorri azkarra ahalbidetzen du. Berria - Harian

---

elkarreragin[1] **1** *iz* elkarrekiko eragina.

Elkarrekiko mendekotasunaren usadiozko ikusmoldearen arabera, zeina merkataritza-trukeei lotutako **elkarreraginetan** oinarritzen baita, [...]. Koro Navarro

Elkarreragin pixka bat nahi nuen; horren ordez, beste zerbait lortu nuen beharbada: ikasi ahal izan nuen nola sentitzen diren ume autisten gurasoak, ia batere erantzuten ez duen ume baten aurrean. Xabier Olarra

Arinegi edo lotsagabe samar eta bereizketarik egin gabe ibiltzen bazen **elkarreragin** edo erreakzioetan. Xabier Olarra

Komunitatea (ekilearen eta jasalearen arteko **elkarreragina**). Ibon Uribarri

Hau **elkarreragina** da, h[au] d[a], substantzien benetako komunitate bat. Ibon Uribarri

Hirugarren zerizana hartu behar dela baliabide moduan, bien artean, **elkarreragina** ez bada ere, behinik behin korrespondentzia eta harmonia eratzeko. Ibon Uribarri

Kontu handia izan zuen kolorearen ikusmenaz berak eraikitako teoriari Retinex teoria deitzen, hala zeharka adierazten baitzuen **elkarreraginerako** gune asko izan zitezkeela erretinaren eta kortexaren artean. Xabier Olarra

Honek esan nahi du adigaiok direla guk zerbait gauza gisa pentsatzeko baliabidea, eta beraz, handitasun determinatu edo kantitate gisa, substantzia edo akzidente gisa, kausa edo efektu gisa, **elkarreragin** osoan dauden substantzia gisa pentsatzeko baliabidea direla. Ibon Uribarri

Garapen soziokulturalera bultzatzen duen indar eragilea giza izaera komunaren eta natur ingurunearen arteko **elkarreraginean** datza. Askoren artean

Irudiaren eta pertsonaren edo egoeraren ezaugarrien arteko **elkarreraginarekin** du lotura atseginak. Josu Zabaleta

Kontrastea: argitasunaren eta ertzen arteko **elkarreragina**. Josu Zabaleta

Proiekzioen soinuek, arkitekturarekin **elkarreraginean**, giro akustiko inguratzailea sortzen dute, eta ikuslea beren baitara biltzen. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Liberalismo berria, oroz gain, munduko ekonomiaren aldaketen eta nazio-ekonomietako sektore desberdinen arteko indar-harremanen bilakaeraren arteko **elkarreragin** dinamikoaren emaitza da. Koro Navarro

Bi aldeen arteko harreman psikologikoa ez da etsaitasunetik aurreko **elkarreragin** sortzailera itzultzen. Iñaki Mendiguren

Badela autista guztiengan arazo nagusi bat, ezintasun-hirukote konstante bat: **elkarreragin** sozialerako ezintasuna, hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako ezintasuna, jolas eta irudimenezko jardueretarako ezintasuna.baliteke ezaugarri autisten artean **elkarreragin** korapilatsua (eta potentzialki sortzailea) gertatzea. Xabier Olarra

Ez dutela trebetasunik biren arteko harreman pertsonalak sortzeko eta haiei eusteko, eta, halaz guztiz, nahiko irismenean dituztela errutinako **elkarreragin** sozialak. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan)

Lanbideko parametroez neurtuz gero, arrakasta izugarria du, baina giza **elkarreraginak** -gizartekoak, sexualak- ez ditu "harrapatzen". Xabier Olarra

---

elkarreragin[2], elkarreragin, elkarreragiten du *ad* elkarren artean eragin.

Ikertzaileek uste dute antigorputzek hazia koagularazten laguntzen duen substantzia natural batekin **elkarreragiten** duela. Berria - Gaiak

Eguneroko bizitzako jarduera garatzeko elkarren artean konektaturik dauden hainbat gailurekin pertsonek modu garbian **elkarreragin** dezakete ingurune bat garatzea. Berria - Ekonomia

Eraketa-sistema bati buruz hitz egiten denean ez da ulertzen bakarrik osagai heterogeneoen arteko justaposizioa, koexistentzia edo **elkarreragitea** (erakundeak, teknikak, gizarte taldeak, hautemate erakundeak, diskurtso ezberdinen arteko harremanak), horrez gain ulertzen da jardute diskurtsiboaren bidez eurak elkarren artean harremanean jartzea, ondo zehaztutako forma batean. Xabier Arregi

---

elkarreratu ik **elkarretaratu**.

---

elkarretaratu, elkarretara(tu), elkarretaratzen *(orobat **elkarreratu** g.er.)* **1** da/du *ad* elkarretara bildu. ik **elkarrenganatu**.

Hogeita bost urteren buruan, Bertsozaleok betiko ostatuan **elkarretaratzen** ginen, berak behiala hamaika saio egin eta algara gehiago eragin zituen toki berean. Berria - Kultura

SEAren egoitzaren aurrean **elkarretaratu** da sindikatua. Berria - Ekonomia

Pisuerga ibaia iragan aitzin, lau errepideak **elkarretaratzen** diren unean. Piarres Aintziart

Behar izan du, **elkarretaraturik** hobeki bizitzeko, anitz etxe elkarretara bilduz herria sortu. Piarres Xarriton

Natura eta historia nola **elkarretaratu** izpirituarekiko erlazioan. Joxe Azurmendi

Gizonak **elkarretaraturik** ikusten nituen guztietan, taldean sartzen nintzen. Monika Etxebarria

Paralelo doazen, gurutzatzen diren, elkarrengandik bereizten diren edo **elkarretaratzen** diren denboren serie infinitu bat. Jon Alonso

Reclus eta haren gogaideen ideala giza arrazaren batasuna omen zen; kontinente denetako arrazak **elkarretaratzea** , hala nola [...] bazter askotako errekak ibar berean baitira batzen, berealdiko erreka bakar batean elkar aurkituz eta elkarretara bilduz. Iñaki Segurola

Erran ere, bidean gindoazelarik, ondoko egunetan atsegin ukanen nuela berriz biak **elkarretaratzen** ahal baginen. Janbattitt Dirassar

Ene baitan egiten nuen haatik noizbait jinen zela biak buruz buru **elkarretaratzen** ahalko ginen eguna. Janbattitt Dirassar

Perspektibazko irudiak (horrela deituko diogu aurrerantzean *perspectiva artificialis*-aren arabera egindako irudiari) plano batean lerroak **elkarretaratzea** eragiten du. Josu Zabaleta

Ederki **elkarretaratzen** ditu forma eta esanahia. Iñaki Arranz

Zuzenbidea eta teologia **elkarretaratzen** dituelakotz eta kasu konkretuak ere eztabaidatzen. Piarres Xarriton

Adiskidetuz eta haserretuz orobat, gorde-agerka betiere, **elkarretaratuz** eta elkarretarik partituz etengabe, badoaz eta badatoz. Iñaki Segurola

Bien zortea bide zen inoiz ez **elkarretaratzea** . Elena Touyarou

2 (era burutua izen gisa)

Istiluak izan ziren **elkarretaratuen** eta ertzainen artean. Berria - Ekonomia

Elkarretaratuek sakabanaketak «hil» egiten duela salatu zuten. Berria - Euskal Herria

Elkarretaratuek txaloka hartu zuten Berruetaren sendia eta haiek eskuarekin diosala eginez erantzun zieten. Berria - Harian

Elkarretaratuak txistuka hasi ziren, eta «polizia hiltzailea» deiadar egin zuten. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atarian elkarretaratu (3); **aurrean elkarretaratu** (11); **aurrean elkarretaratu ziren** (8); **aurrean elkarretaratuko** (3); **aurrean elkarretaratuko dira** (3); **bat lagun elkarretaratu** (4); **egoitzaren aurrean elkarretaratu** (5); **egoitzaren aurrean elkarretaratuko** (3); **ehunka lagun elkarretaratu** (3); **elkarretaratu da** (4); **elkarretaratu dira** (7); **elkarretaratu ziren** (65); **elkarretaratu ziren atzo** (17); **elkarretaratuko dira** (10); **inguru elkarretaratu** (4); **inguru elkarretaratu ziren** (4); **lagun elkarretaratu** (18); **lagun elkarretaratu ziren** (16); **pertsona elkarretaratu** (3); **pertsona elkarretaratu ziren** (3); **plazan elkarretaratu** (3)

aurrean elkarretaratzera (5); **aurrean elkarretaratzera deitu** (5); **elkarretaratzera deitu** (48); **elkarretaratzera deitu du** (23); **elkarretaratzera deitu dute** (16); **elkarretaratzera deitu zuen** (6); **elkarretaratzera deitzea** (4); **elkarretaratzera ez** (4); **elkarretaratzerako deia** (3; **salatzeko elkarretaratzera** (3); **salatzeko elkarretaratzera deitu** (3)

---

elkarretaratze **1** *iz* elkarretara biltzea.

Elkarretaratzea ospatzeko. Mirentxu Larrañaga

Hainbat manifestazio, **elkarretaratze** , gose-greba, giza kate e.a. izan dira aldarri horren alde. Txema Ramirez de la Piscina

Odolez eta boterez nagusi den jende honen topaketak eta **elkarretaratzeak** aski ezagutzen ditugunez, garaia da nor gehiago dagoen jakiteko, zeintzuk diren soldadu hauek. Jon Alonso

CGTk **elkarretaratzea** egingo du bihar goizean, «elkartasunezko Gizarte Segurantza» aldarrikatzeko. Berria - Ekonomia

Parisen ez ezik, Estrasburgon eta Nantesen ere **elkarretaratzeak** egin ziren atzo. Berria - Gaiak

Gulanar jauregian ikusi zutelarik, hegaka joan zitzaizkion eta **elkarretaratzea** zinez hunkigarria gertatu zen. Patxi Zubizarreta

Prentsaurrekoak, hitzaldiak, **elkarretaratzeak** , denetarik egin genuen. Edurne Elizondo

Hainbat **elkarretaratze** eta manifestaziotan parte hartu zuela eta greba deitzeko prentsaurrekoan «rol aktibo eta garrantzitsua» eduki zuela dio autoak. Berria - Harian

Txekiar Akademiak mundu guztiko genetista-jendea gonbidatu du **elkarretaratze** batera, gai bikoitz harturik Mendelek jokatutako papera eta XX. mendearen lehen erdian genetikak egindako aurrerabidea. Juan Garzia

Euskal Enpresaburuen Konfederazioak, Confebaskek hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak deitutako **elkarretaratzeetan** parte hartzera gonbidatu ditu langileak. Berria - Harian

Emakume jatorra da, batzordeak deitutako **elkarretaratzeetara** azaltzen ez den arren. Koldo Izagirre

Arnasa hartu nuen haizeen **elkarretaratzearen** zurrunbiloan. Joxan Elosegi

Batasunak deituta, **elkarretaratze** ugari izan ziren atzo Euskal Herri osoan. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

EH eta LAB sindikatak ere **elkarretaratze** ixilak deitu dituzte bakea eta burujabetza lemaren pean. Herria

Maiatzaren leheneko **elkarretaratze** nagusian. Berria - Mundua

Gazteen kolektiboen **elkarretaratze** handi bat antolatua dugu, Collectivos 2004 izenpean. Berria - Kultura

Elkarretaratze jendetsua egin zuen Nafarroako hiriburuan Martxoaren 8ko Batzordeak. Berria - Harian

Elkarretaratze kopurutsuena Nabulusen egin zen, 2.000 lagunetik gora bildu baitzen bertan. Berria - Mundua

Bertsolarien hainbat emanalditan publikoaren osaketak nolabaiteko komunitate zentzu bat iradokitzen du, adin eta izaera guztietako jendea biltzen duen herri-jaien **elkarretaratze** sinbolikoaren zentzu zaharraren (eta berrituaren) baitan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sekula bizi izan dudan **elkarretaratze** antiespainiar handiena izan zen. Berria - Kirola

Elkarretaratze hunkigarri haren biharamunean agurraren ordua heldu zen. Patxi Zubizarreta

Gurasoekin joan nintzen urtegiaren aurkako lehendabiziko **elkarretaratzeetara** . Edurne Elizondo

Asteroko **elkarretaratzea** amaitu ostean ez dabil jende askorik herriko plazan. Urtzi Urrutikoetxea

Beren lankide biologoek ez bezala, haiek bazuten, arma nuklearrak zirela eta, bidaiatzeko eta atzerriko **elkarretaratzeetan** parte hartzeko aukera. Juan Garzia

Ez ote diguten zailduko balizko **elkarretaratze** hori. Hasier Etxeberria

Ahantzezinezko **elkarretaratzeak** ere, Normaren harrera, adeitasun eta antolakunde baliosari esker. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Carascasko sei **elkarretaratze** gunetan bildu ondoren, manifestariak hiriburuaren erdialdean bateratu ziren, eta han mitin batean parte hartu zuten. Berria - Mundua

Beste **elkarretaratze** saiorik ere gogor galarazi zuen Polizia turkiarrak. Berria - Mundua

Hamas Erresistentzia Islamikoaren Mugimenduak Gazan urtero, erakundearen urteurrena ospatzeko, egin ohi duen **elkarretaratze** eguna atzeratu egingo duela jakinarazi zuen. Berria - Mundua

Manifestazio eta **elkarretaratze** egutegia prestatzeaz gain, aurretik Katedral Berrian paraturik zuten kanpalekua berriro jarri edo ez erabaki beharko dute. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bazter batean zetorrean, ezkerreko orrialdean, Segik auskalo non ikasle-**elkarretaratzea** deitzen zuela zioen berri labur baten gainean. Jokin Muñoz

Filipe Askatu komiteak antolaturik, 10:00etan iragatekoa da gaur, Baionako Auzitegiaren aitzinean, lehen prentsaurreko-**elkarretaratzea** . Berria - Euskal Herria

Otsailaren 10ean, partida baino minutu batzuk lehenago, protesta **elkarretaratzea** burutuko dute San Andres plazan, besta giroan. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko elkarretaratze (4); **beste elkarretaratze** (11); **beste elkarretaratze bat** (8); **bi elkarretaratze** (5); **den elkarretaratze** (3); **duen elkarretaratze** (3); **egin zen elkarretaratze** (3); **elkarretaratze bat** (26); **elkarretaratze bat antolatu** (3); **elkarretaratze bat egin** (5); **elkarretaratze bat egiteko** (3); **elkarretaratze batean** (13); **elkarretaratze batean parte** (6); **elkarretaratze batekin** (3); **elkarretaratze baten** (5); **elkarretaratze batera** (7); **elkarretaratze batera deitu** (4); **elkarretaratze egin** (14); **elkarretaratze egin ziren** (6); **elkarretaratze egin zituzten** (7); **elkarretaratze eta** (13); **elkarretaratze eta manifestazio** (3); **elkarretaratze isila** (5); **elkarretaratze isilak** (7); **elkarretaratze isilean** (3); **elkarretaratze jendetsua** (3); **elkarretaratze jendetsua egin** (3); **elkarretaratze nazionalera** (3); **elkarretaratze nazionalera deitu** (3); **elkarretaratze ugari** (11); **elkarretaratze ugari egin** (8); **eta elkarretaratze** (8); **hainbat elkarretaratze** (18); **hainbat elkarretaratze egin** (9); **hainbat elkarretaratze eta** (5); **manifestazio eta elkarretaratze** (4); **zen elkarretaratze** (3); **zuen elkarretaratze** (4)

alde elkarretaratzea (3); **aldeko elkarretaratzea** (21); **askatzea eskatzeko elkarretaratzea** (3); **atarian elkarretaratzea** (4); **atarian elkarretaratzea egin** (3); **aurka elkarretaratzea** (3); **aurkako elkarretaratzea** (6); **aurrean elkarretaratzea** (17); **aurrean elkarretaratzea egin** (7); **aurrean elkarretaratzea egingo** (4); **bat lagunek elkarretaratzea** (9); **batasunak elkarretaratzea** (4); **beharginek elkarretaratzea** (4); **beharginek elkarretaratzea egin** (3); **da elkarretaratzea** (8); **deituta elkarretaratzea** (8); **deituta elkarretaratzea egingo** (6); **dute elkarretaratzea** (12); **egin zuen elkarretaratzea** (3); **egin zuten elkarretaratzea** (12); **egindako elkarretaratzea** (3); **egingo da elkarretaratzea** (3); **egingo dute elkarretaratzea** (8); **eguerdian elkarretaratzea** (3); **eilas sindikatuek elkarretaratzea** (4)

elkarretaratzea antolatu (28); **elkarretaratzea antolatu du** (8); **elkarretaratzea antolatu dute** (12); **elkarretaratzea antolatu zuen** (5); **elkarretaratzea autobus** (3); **elkarretaratzea autobus geltokitik** (3); **elkarretaratzea bertan** (3); **elkarretaratzea bertan behera** (3); **elkarretaratzea bihar** (3); **elkarretaratzea debekatu** (3); **elkarretaratzea deitu** (19); **elkarretaratzea deitu du** (8); **elkarretaratzea deitu dute** (9); **elkarretaratzea egin** (215); **elkarretaratzea egin dute** (17); **elkarretaratzea egin zuen** (32); **elkarretaratzea egin zuten** (154); **elkarretaratzea eginen** (20); **elkarretaratzea eginen du** (5); **elkarretaratzea eginen dute** (14); **elkarretaratzea egingo** (115); **elkarretaratzea egingo da** (20); **elkarretaratzea egingo du** (14); **elkarretaratzea egingo dute** (74); **elkarretaratzea egingo dutela** (4); **elkarretaratzea egitea** (3); **elkarretaratzea egiteko** (8); **elkarretaratzea egiten** (7); **elkarretaratzea egiten dute** (3); **elkarretaratzea ere** (5); **elkarretaratzea eta** (4); **elkarretaratzea gasteiz** (3); **elkarretaratzea gasteiz izanek** (3); **elkarretaratzea gaur** (3); **elkarretaratzea golem** (3); **elkarretaratzea hasi** (4); **elkarretaratzea hasi aurretik** (3); **elkarretaratzea izan** (3); **elkarretaratzea izanen** (4); **elkarretaratzea izanen da** (4); **elkarretaratzea izango** (11); **elkarretaratzea izango da** (11)

ean elkarretaratzea (4); **ean elkarretaratzea egin** (3); **erdiko elkarretaratzea** (4); **erdiko elkarretaratzea egin** (3); **ere elkarretaratzea** (11); **ere elkarretaratzea egin** (3); **ere elkarretaratzea egingo** (3); **eskatzeko elkarretaratzea** (5); **eskatzeko elkarretaratzea egingo** (3); **eta elkarretaratzea** (14); **eta elkarretaratzea egin** (5); **eta elkarretaratzea egingo** (3); **gaur elkarretaratzea** (4); **gaur elkarretaratzea egingo** (3); **gaur ere elkarretaratzea** (4); **inguruk elkarretaratzea** (4); **inguruk elkarretaratzea egin** (4); **iruñ iruñ kideek elkarretaratzea** (3); **kontrako elkarretaratzea** (6); **kontrako elkarretaratzea egin** (4); **labek elkarretaratzea** (3); **lagunek elkarretaratzea** (15); **lagunek elkarretaratzea egin** (14); **langileek elkarretaratzea** (12); **langileek elkarretaratzea egin** (12); **lelopean elkarretaratzea** (3); **ordezkariek elkarretaratzea** (6); **ordezkariek elkarretaratzea egin** (4); **ordu erdiko elkarretaratzea** (4); **plataformak elkarretaratzea** (5); **plataformak elkarretaratzea egin** (4); **plazan elkarretaratzea** (5); **salatzeko elkarretaratzea** (11); **salatzeko elkarretaratzea egin** (7); **sindikatuak elkarretaratzea** (4); **sindikatuak elkarretaratzea egin** (3); **sindikatuek elkarretaratzea** (6); **taldeek elkarretaratzea** (3); **z elkarretaratzea** (3); **zen elkarretaratzea** (9); **zuen elkarretaratzea** (5); **zuten elkarretaratzea** (17)

aldeko elkarretaratzeak (3); **aurrean elkarretaratzeak** (12); **aurrean elkarretaratzeak egin** (6); **dira elkarretaratzeak** (5); **dituzte elkarretaratzeak** (4); **egin ziren elkarretaratzeak** (5); **egin zituzten elkarretaratzeak** (3); **egingo dira elkarretaratzeak** (3); **egoitzen aurrean elkarretaratzeak** (5); **elkarretaratzeak antolatu** (15); **elkarretaratzeak antolatu ditu** (11); **elkarretaratzeak antolatu dituzte** (3); **elkarretaratzeak deitu** (9); **elkarretaratzeak deitu ditu** (5); **elkarretaratzeak egin** (65); **elkarretaratzeak egin dituzte** (7); **elkarretaratzeak egin ziren** (9); **elkarretaratzeak egin zituen** (13); **elkarretaratzeak egin zituzten** (32); **elkarretaratzeak eginen** (8); **elkarretaratzeak eginen dira** (5); **elkarretaratzeak egingo** (37); **elkarretaratzeak egingo dira** (6); **elkarretaratzeak egingo ditu** (7); **elkarretaratzeak egingo dituzte** (18); **elkarretaratzeak egitea** (3); **elkarretaratzeak egiteko** (3); **elkarretaratzeak egiten** (6); **elkarretaratzeak eta** (10); **elkarretaratzeak euskal** (6); **elkarretaratzeak euskal herriko** (4); **elkarretaratzeak izan** (5); **elkarretaratzeak izan ziren** (4); **ere elkarretaratzeak** (3); **ere elkarretaratzeak egin** (3); **eta elkarretaratzeak** (24); **eta elkarretaratzeak antolatu** (3); **eta elkarretaratzeak egin** (7); **eta elkarretaratzeak egingo** (3); **labek elkarretaratzeak** (3); **langileek elkarretaratzeak** (4); **langileek elkarretaratzeak egin** (3); **manifestazioak eta elkarretaratzeak** (3); **salatzeko elkarretaratzeak** (7); **ziren elkarretaratzeak** (6); **zituzten elkarretaratzeak** (3)

atzoko elkarretaratzean (7); **aurrean egindako elkarretaratzean** (5); **aurreko elkarretaratzean** (3); **deitutako elkarretaratzean** (5); **duten elkarretaratzean** (9); **duten elkarretaratzean parte** (3); **egin zuten elkarretaratzean** (4); **egindako elkarretaratzean** (20); **egindako elkarretaratzean parte** (3); **egingo duten elkarretaratzean** (3); **eginiko elkarretaratzean** (9); **eko elkarretaratzean** (3); **elkarretaratzean ez** (3); **elkarretaratzean izan** (4); **elkarretaratzean izan ziren** (3); **elkarretaratzean parte** (21); **elkarretaratzean parte hartu** (5); **elkarretaratzean parte hartuko** (3); **elkarretaratzean parte hartzeagatik** (3); **elkarretaratzean parte hartzeko** (4); **elkarretaratzean zeuden** (4); **eta elkarretaratzean** (4); **iruñ ziren elkarretaratzean** (7); **zuen elkarretaratzean** (3); **zuten atzoko elkarretaratzean** (3); **zuten elkarretaratzean** (8)

antolatutako elkarretaratzeetan (3); **atzoko elkarretaratzeetan** (3); **deitutako elkarretaratzeetan** (3); **diren elkarretaratzeetan** (9); **diren elkarretaratzeetan parte** (6); **dituen elkarretaratzeetan** (4); **duten elkarretaratzearekin** (3); **egindako elkarretaratzearen** (3); **egindako elkarretaratzeetan** (5); **egingo diren elkarretaratzeetan** (5); **eginiko elkarretaratzeetan** (5); **egiten diren elkarretaratzeetan** (4); **elkarretaratzearekin bat** (4); **elkarretaratzearekin bat egin** (4); **elkarretaratzearen amaieran** (3); **elkarretaratzearen ondoren** (3); **elkarretaratzearen ostean** (4); **elkarretaratzeetan parte** (21); **elkarretaratzeetan parte hartzeko** (10); **elkarretaratzeetan parte hartzera** (7); **elkarretaratzeetara deitu** (9); **elkarretaratzeetara deitu du** (5); **elkarretaratzeetara deitu dute** (3); **elkarretaratzetara deitu** (3); **zuen elkarretaratzearen** (3)

---

elkarrezin *izond* ezin elkartuzkoa.

Bi gauza **elkarrezinak** dira baldin eta behar duten lekua batentzat aski bada baina ez bientzat: esate baterako, Walt Whitmanen poesia eta Jainkoaren gizonarekiko errukia. Xabier Olarra

Honelako hizkera doilorraren ordez: "Erne ibili, berriz ikusten bahaut hilko haut"; beste hitz hauek: "Jauna, **elkarrezinak** gara" esatea indar berdintsuko desafioa da, baina gizalegearen aldetik beste maila batekoa. Xabier Olarra

---

elkarrezintasun *iz* elkarrezina denaren nolakotasuna.

Elkarrezintasuna, ikusiko denez, bateraezintasun laxoa baizik ez da. Xabier Olarra

---

elkarridazketa *iz* elkarrekiko idazketa.

Gisa oroz, behialako **elkarridazketa** ez zen debalde izan, gure Irakasleari gogoratu baitzitzaion beraz horrela misiotara joatea, bere askaziaren lagun, Indietaraino: [...]. Piarres Xarriton

---

elkarrikuste ik **elkar 1**.

---

elkarrilketa *iz* elkar hiltzea.

Elkarrizketaren ordez, **elkarrilketaren** printzipioa -Kain eta Abel- batasungile; eta batak bestea lapurtuz -Esau eta Jakob- inposaturiko batasuna. Joxe Azurmendi

---

elkarrizkatu, elkarrizka, elkarrizkatzen du *ad ipar* elkarrizketatu.

Orduko hartan, ordea, Castroz gain, epaituak izan behar ziren disidenteak, haien senideak eta Castroren aurkako pertsonak ere **elkarrizkatu** zituen, «gaur egungo Kubaren ahalik eta argazki zehatzena aurkeztu nahian». Berria - Kultura

Hiru mila gaztek, adinekoekin nahas-mahas, "bâteaux-mouche" delakoetan Parise trebesatu dute zorionaz eta sinesteaz **elkarrizkatuz**. Herria

---

elkarrizketa *(**5.505** agerraldi, **227** liburu eta **2,276** artikulutan; ETCn **63.874** agerraldi; orobat **elkarhizketa** g.er.)* **1** *iz* zerbaitez mintzatzeko, bi nahiz gehiago lagunek egiten duten solasaldia; norbaitekin, zerbaiten berri jakiteko edo zerbaiti buruz bere iritziak izateko, egiten den solasaldia.

Ezin nintzen jabetu **elkarrizketa** haren gaiaz, Brightmanek bere solaskide ikusezinak baino gutxiago hitz egiten baitzuen. Oskar Arana

EAJk Vatikanoarekin izandako **elkarrizketetan** Aita Alberto Onaindiak Valerio Valery Parisko nuntzio apostolikoa izan zuen solaskide. Jokin Urain

Film bateko **elkarrizketa** batean esandako esaldi batez oroitu naiz. Oskar Arana

Elkarrizketa guztia entzuna zuen atearen bestaldetik. Harkaitz Cano

Elkarrizketa konfiantza giroan garatu izanak ausartagotu egin zuen eta, irribarre urduri batez, esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Kasik beti asteburuko kirol emaitzetan mugatzen ziren aita eta semearen arteko **elkarrizketak** . Ramuntxo Etxeberri

Elkarrizketa beti da kontra-hizketa, arrazoiketan elkar probatzea eta tentatzea. Iñaki Segurola

Raimundo Silva ez dago lasai, baina lasai dagoela ematen du, **elkarrizketak** hartu duen norabide ustekabekoak eragiten dion nahasteari esker. Jon Alonso

Doinu atsegina zuten **elkarrizketa** bakarrak guardekikoak ziren. Elena Touyarou

Elkarrizketaren jakintza besterik ez dela politika erran baitzuen naski behin Hannah Harendtek, ez ote genioke azkenean galdegin behar geure buruari ez ote gaituen halako enorantzia zerbaitek kutsatu euskaldunak oro? Piarres Xarriton

Meza ondoan Josefinarekin egindako bakarrizketa -ezin **elkarrizketa** erran- elkorraren jakitun egin nuen. Aingeru Epaltza

Elkarrizketa biziki ongi iragan zen. Ramuntxo Etxeberri

Gogoa dun **elkarrizketari** berrekiteko. Iban Zaldua

Romanek ez zidan hitzik aipatu aurreko eguneko **elkarrizketaz** , eta Karmenek nahikoa lan bazuen biharamunari aurre egiten. Inazio Mujika Iraola

Baina utz dezagun **elkarrizketa** hau, hemendik aurrera inoiz ez dugu gai honetaz berriro hitz egingo. Jose Morales

Elkarrizketa 1957ko otsailean argitaratu bazen ere uste izatekoa da 1956an egin zela. Edorta Jimenez

Orain dela hiru bat urte, Anthony Perkins aktoreari **elkarrizketa** bat egin zioten seriotzat har zitekeen telesaio batean. Bernardo Atxaga

Elkarrizketa pare bat egin, garagardo bat patxadaz edan, eta etxera. Aingeru Epaltza

Zerorrek eskatu duzun **elkarrizketara** berandu agertzea ez da itxura. Aingeru Epaltza

Ezin da alferrik galdu **elkarrizketarako** aukera. Berria - Harian

Elkarrizketarako printzipioak, metodologia eta agenda adosten badira. Berria - Euskal Herria

Kulturako erredaktoreak grabagailu bati eragiten zion aitzin eta gibel, **elkarrizketa** bat papereratzen ari. Aingeru Epaltza

Kratilo **elkarrizketan** mintzaira da aipagai: naturaz ala hitzarmenez da adierazle? Askoren artean

Sinposioa **elkarrizketan** irudikatzen du Platonek edertasunari buruzko teoria. Askoren artean

Zizeronen **elkarrizketak** Jakinduriaren bilaketa eta jabetza aholkatzen zuen. Imanol Unzurrunzaga

Bertie Ahern Irlandakoarekin izandako **elkarrizketen** ostean. Berria - Euskal Herria

Badirudi gehienek pentsatzen dutela gatazkak **elkarrizketaren** bidez konpondu behar direla. Berria - Euskal Herria

-Barkatu, jaun agurgarri hori, baina berriro itzularazi nahi zintuzket lehengo **elkarrizketaren** harira. Jose Morales

Elkarrizketaren haria galtzekotan ginen. Jon Muñoz

Azkenerako ez genuen ezagun berriak ematen, aspaldiko lagunak baino, hain naturala zen gure **elkarrizketaren** tonua. Jon Arretxe

Elkarrizketak iraun zuen denbora guztian Txitxikov bisitaria aztertzen aritu zen. Jose Morales

ETArekiko **elkarrizketaren** balioa ere handitu egin da. Berria - Euskal Herria

Urteak dira *The Paris Review* aldizkariak Vladimir Nabokov, George Seferis, W.H. Auden, Anthony Burgess, Jack Kerouac, John Updike eta beste hainbati egindako **elkarrizketak** irakurri nituela. Ana Urkiza

Alde anitzeko **elkarrizketak** abiatzeko adostasunak lortzeko garaia dela. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Elkarrizketa atsegina edozein jaki baino gozoagoa da. Jose Morales

Gogora etorri zitzaion arratseko argitasun berogarrian izaniko **elkarrizketa** atsegin eta mamitsua. Jose Morales

Gero **elkarrizketa** luze, nahasi bat etorri zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Amatxirekiko **elkarrizketa** luzeak -behin baizik gertatu ez bazen ere- husturik utzi zuen. Elena Touyarou

Ni, **elkarrizketa** sakon horietan, isilik geratzen nintzen; ez nintzen ezer esatera ausartzen. Iban Zaldua

Egun batzutara itzuliko naiz berriro, "señor Santiago" deitzen dioten zahar bati **elkarrizketa** bero bat egitera: gaztetan pertsona bat hil zuen matxetearekin. Pako Aristi

Desengainu itzela hartuko zuen inoiz harekin **elkarrizketa** serio bat edukitzea lortzen bazuen. Oskar Arana

Sekula izan dudan **elkarrizketarik** nekagarrien eta gogorrenetako bat. Oskar Arana

Ordubete eman zuten **elkarrizketa** bizian, azkenik ohera joatea erabaki aurretik. Aitor Arana

Elkarrizketa biziak ziren, pertsonalak, eta idazleek mingainean arantzarik gabe erantzunak. Ana Urkiza

Eta beste giza ahots batzuk entzuteko ere bai, geure arteko **elkarrizketa** monosilabiko haiekin aspertzen hasita. Xabier Mendiguren Elizegi

Elkarrizketa metafisikoak. Askoren artean

Hutsegiteen zuzentzeaz eta zuzenketen hutsegiteaz aldez aurretik eduki zuen **elkarrizketa** labirintiko samarrean. Jon Alonso

Kurt, filmatze-taldeko partaide gehienak bezala, ezkertiarra zen, nabarmena zenez, baina ez zuten gai politikoa behin ere ukitu, haien arteko **elkarrizketa** etilikoetan. Iban Zaldua

June-ren hileta-egunekoa alde batera utzita, bere amaren South Orange-ko etxean (New Jersey-n) izan nuen berarekin azkeneko **elkarrizketa** . Oskar Arana

Ikustearen ikusteaz, halako konfiantza hartu bainuen Hipokrates jaunarekin, eta noiznahi izaten bainituen harekin alegiazko **elkarrizketak** . Joan Mari Irigoien

Benetako **elkarrizketa** eta negoziazioa beste lekuetan baino errazagoa izango da. Berria - Euskal Herria

Bilintxen bertsoak maitasunezko **elkarrizketa** bat ziren, baserri baten jabearen eta maizterraren alabaren artekoa. Koro Navarro

Telefonozko **elkarrizketa** hori izan zen amaiera. Oskar Arana

Ez berba gutxi batzuk, baizik eta taxuzko **elkarrizketa** bat. Oskar Arana

Bakarkako **elkarrizketa** samurretan. Jose Morales

Lagun arteko **elkarrizketa** batean. Iñigo Aranbarri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erkidego bakoitzeko proiektuekin **elkarrizketa** garaia heldu da. Berria - Euskal Herria

Alderdien arteko **elkarrizketa** mahaia eratzeko. Berria - Ekonomia

Joseba Sarrionandiak geroztik kontatu du -Hasier Etxeberriarekiko **elkarrizketa** -liburu aipatu horretan- huraxe izan zela euskaraz idatzita ikusi zuen lehenengo testuetako bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Ipar eta Hego Korea, Japonia, Txina, Errusia eta AEBek beste **elkarrizketa** saio bat hasi zuten atzo Piongiangen ahalmen nuklearraz. Berria - Mundua

Elkarrizketa zatiak baino ez zaizkio heltzen leihatila erdi-irekitik. Iban Zaldua

Elkarrizketa lagin xume honetatik igarri ahal dugunez, dohain eta bertute handien jabe ziren gure alienigena aknedun haiek: ninfomanoak, txoriburuak, auzokalteak... Patxi Iturritegi

Erraza da zuen aitonaren **elkarrizketa** -prozesua. Xabier Etxabe

Proposatzen den **elkarrizketa** dinamikak eraikitzailea behar du izan eta aipatutako oinarri hauekin nahikoa da akordio zabala bilatzeko. Berria - Euskal Herria

ETAren eta Espainiako Gobernuaren arteko harremanak, zuzenak eta zeharkakoak, ugariak izan dira frankismoaz geroztik; baina behin baino ez dute egin **elkarrizketa** prozesu formala. Berria - Harian

Maximilian plazako eguzkia eta **elkarrizketa** -hots alaia atzean utzita, isilean zeharkatu genuen garagardotegi iluna. Alberto Ladron Arana

Gogoan dut, eskaileretan behera gindoazela, Rositak eguraldiaren zeraren bat izan zuela **elkarrizketa** -makulu. Karlos Linazasoro

Elkarrizketa bidez arazoa ezin dutela konpondu ikusita, auzitegitako bidea hartu dute. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kale **elkarrizketak** nonahi, auzokidea sufrimenduaren irudi bilakatua. Iñigo Aranbarri

Hala esan zuen atzo Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak irrati **elkarrizketa** batean. Berria - Harian

Telefono-**elkarrizketa** amaitu egin zen, eta Tomek nor nintzen azaldu zionean, Harry Brightman altxatu egin zen besaulkitik eta eskua eman zidan. Oskar Arana

5 *elkarrizketa gai* *(orobat **elkarrizketagai** g.er.)*

Zeren, berau ere Louvren sekula izan gabea dela jakin orduko, aldatu egin baita, Jainkoari esker, mahai inguruko gure **elkarrizketa-gaia** : [...]. Joxe Austin Arrieta

Abando hoteleko **elkarrizketa gaia** zen EAJk eta PSOEk koalizioa egingo ote duten hipotesia. Berria - Harian

Dena den, idazten segitzen baldin badugu, gero ez dugu **elkarrizketa gairik** izango, gure irudimena oso mugatua baita. Pello Salaburu

Nadia isildu zen, eta, handik aurrera, ez zuen ekarri solasera Mikel Strogoffen egoera berezia gogoraraz zezakeen **elkarrizketa gairik**. Karlos Zabala

Hanka bat atera egin du taldeko **elkarrizketa gai** jakinetatik. Pako Aristi

Ez zegoen beste **elkarrizketa-gairik**, ezta espaziorik ere etxe hartan emakumearentzat; umeak Antoniori zion atxikimendua, gainera, geroz eta handiagoa zen, eta amarekiko urruntasuna neurri berean zihoan zabaltzen, antza. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

adierazi zuen elkarrizketa (5); **alderdien arteko elkarrizketa** (44); **argitaratu zen elkarrizketa** (5); **argitaratutako elkarrizketa** (12); **argitaratutako elkarrizketa batean** (9); **ari den elkarrizketa** (5); **artean elkarrizketa** (24); **arteko elkarrizketa** (221); **arteko elkarrizketa beharrezkoa** (6); **arteko elkarrizketa eta** (8); **arteko elkarrizketa mahaia** (14); **askoren arteko elkarrizketa** (6); **azken elkarrizketa** (5); **baina elkarrizketa** (15); **bakarra elkarrizketa** (10); **baldintzarik gabeko elkarrizketa** (16); **batek elkarrizketa** (5); **bazterketarik gabeko elkarrizketa** (24); **benetako elkarrizketa** (26); **beste elkarrizketa** (10); **beste elkarrizketa bat** (5); **bi elkarrizketa** (8); **bien arteko elkarrizketa** (10); **buruzko elkarrizketa** (13); **da elkarrizketa** (31); **dela elkarrizketa** (5); **den elkarrizketa** (17); **denen arteko elkarrizketa** (5); **dio elkarrizketa** (9); **dituen elkarrizketa** (10); **du elkarrizketa** (25); **duen elkarrizketa** (27); **dugu elkarrizketa** (10); **dut elkarrizketa** (7); **dute elkarrizketa** (6); **duten elkarrizketa** (6); **duzu elkarrizketa** (5); **edo elkarrizketa** (9); **egin zion elkarrizketa** (7); **egin zioten elkarrizketa** (8); **egindako elkarrizketa** (66); **egindako elkarrizketa argitaratu** (6); **egindako elkarrizketa batean** (18); **eginiko elkarrizketa** (20); **eginiko elkarrizketa batean** (9); **egunkariari eskainitako elkarrizketa** (5)

elkarteak adierazi (6); **elkarteak animatzaile** (6); **elkarteak animatzaile formatzaile** (6); **elkarteak antolatu** (46); **elkarteak antolatu du** (11); **elkarteak antolatua** (7); **elkarteak antolaturik** (94); **elkarteak antolatuta** (29); **elkarteak antolatutako** (30); **elkarteak antolatzen** (110); **elkarteak antolatzen ditu** (9); **elkarteak antolatzen du** (74); **elkarteak antolatzen duen** (14); **elkarteak argitaratu** (6); **elkarteak atzo** (17); **elkarteak avt** (14); **elkarteak badu** (6); **elkarteak berak** (10); **elkarteak bere** (95); **elkarteak bere biltzar** (23); **elkarteak bere urteko** (11); **elkarteak berriz** (10); **elkarteak bi** (20); **elkarteak bultzaturik** (6); **elkarteak deituta** (8); **elkarteak dio** (7); **elkarteak dira** (6); **elkarteak dituen** (6); **elkarteak du** (13); **elkarteak egin** (32); **elkarteak egin du** (16); **elkarteak egindako** (12); **elkarteak eginen** (6); **elkarteak eginen du** (6); **elkarteak eginiko** (7); **elkarteak egiten** (6); **elkarteak egun** (7); **elkarteak eie** (9); **elkarteak emandako** (7); **elkarteak emandako datuen** (6); **elkarteak erabaki** (6); **elkarteak ere** (38); **elkarteak erredakzioa** (10); **elkarteak eskaera** (6); **elkarteak eta** (150); **elkarteak eta euskal** (7); **elkarteak euskal** (9); **elkarteak eusko** (10); **elkarteak ez** (38); **elkarteak ez du** (17); **elkarteak gogor** (10); **elkarteak gomitaturik** (6); **elkarteak hartu** (7); **elkarteak izan** (7); **elkarteak jakin** (7); **elkarteak jakinarazi** (16); **elkarteak jakinarazi duenez** (11); **elkarteak jakinarazten** (8); **elkarteak jakinarazten du** (7); **elkarteak lan** (7); **elkarteak lehen** (6); **elkarteak loto** (7); **elkarteak muntatu** (16); **elkarteak muntatzen** (9); **elkarteak proposatzen** (12); **elkarteak proposatzen du** (8); **elkarteak salatu** (21); **elkarteak salatu du** (7); **elkarteak salatzen** (8); **elkarteak salatzen du** (6); **elkarteak sortu** (10); **elkarteak urte** (6); **elkarteak urteko** (6); **elkarteak urtero** (6)

emazteek diote elkarteak (11); **enpresaburuen elkarteak** (31); **enpresen elkarteak** (9); **erabiltzaileen elkarteak** (6); **eta elkarteak** (28); **eta interpreteen elkarteak** (6); **eta lagunen elkarteak** (6); **eta lesbianen elkarteak** (6); **etxerat elkarteak** (61); **etxerat elkarteak atzo** (6); **europako elkarteak** (7); **euskal argentina elkarteak** (8); **euskal editoreen elkarteak** (11); **euskal haziak elkarteak** (19); **euskal idazleen elkarteak** (20); **euskaldunen elkarteak** (7); **euskara elkarteak** (19); **euskaraz elkarteak** (9); **fededunak elkarteak** (11); **fnaca elkarteak** (6); **foyer rural elkarteak** (6); **fusilatuen senitartekoen elkarteak** (6); **galtzagorri elkarteak** (9); **garazikus elkarteak** (24); **garazikus elkarteak antolaturik** (8); **gazte elkarteak** (7); **guraso elkarteak** (9); **gurasoak elkarteak** (17); **gurasoen elkarteak** (17); **gure elkarteak** (7); **hats elkarteak** (8); **hatsa elkarteak** (20); **hatsa elkarteak proposatzen** (7); **hazia elkarteak** (12); **haziak elkarteak** (19); **hazparneko elkarteak** (6); **hemen elkarteak** (30); **hemen elkarteak antolatzen** (6); **herri elkarteak** (10); **herrian euskaraz elkarteak** (9); **herriko bertsozale elkarteak** (7); **herriko dantzak elkarteak** (8); **herriko trikiti elkarteak** (6); **hiru kultur elkarteak** (20)

ibaialde elkarteak (7); **idazleen elkarteak** (29); **idazleen elkarteak eie** (9); **ihiztarien elkarteak** (6); **ikastetxeetako zuzendarien elkarteak** (6); **ikastolen elkarteak** (58); **ikastolen elkarteak eta** (7); **interpreteen elkarteak** (6); **iparraldeko ikastolen elkarteak** (23); **irisartarrak elkarteak** (6); **izeneko elkarteak** (12); **jakintza elkarteak** (7); **jeunes basques elkarteak** (9); **kantuzaleen elkarteak** (6); **kazetarien elkarteak** (6); **kirol elkarteak** (23); **kluben elkarteak** (6); **kontsumitzaileen elkarteak** (11); **kultur elkarteak** (72); **kultur elkarteak eta** (7); **kultura elkarteak** (6); **lagunak elkarteak** (23); **lagunen bilboko elkarteak** (8); **lagunen elkarteak** (18); **larra belagua elkarteak** (7); **leia elkarteak** (11); **leku elkarteak** (9); **lesbianen elkarteak** (6); **libre elkarteak** (7); **limpias elkarteak** (8); **lokarri elkarteak** (30); **lokarri elkarteak antolatzen** (9); **lore elkarteak** (7); **lur hats elkarteak** (8); **lurra zain elkarteak** (8); **manos limpias elkarteak** (8); **mendi elkarteak** (10); **musika elkarteak** (7); **nafarroako bertsozale elkarteak** (9); **nafarroako ikastolen elkarteak** (7); **nazioarteko elkarteak** (10); **nekazarien elkarteak** (6); **ote lore elkarteak** (6); **partaide ikastolen elkarteak** (7); **pilota elkarteak** (12); **profesionalen elkarteak** (6); **rio aragon elkarteak** (7); **rural elkarteak** (6); **senideen elkarteak** (11); **senitartekoen elkarteak** (9); **terrorismoaren biktimen elkarteak** (30); **trikiti elkarteak** (8); **trikitixa elkarteak** (8); **uda leku elkarteak** (9); **udalen elkarteak** (7); **zabalik elkarteak** (7); **zain elkarteak** (13); **zientzia elkarteak** (22); **zuen elkarteak** (20); **zuzendarien elkarteak** (8)

bertsozale elkartean (10); **elkartean direnak** (6); **elkartean eta** (12); **elkartean izan** (6); **elkartean lan** (7); **elkartean parte** (6); **elkartean sartu** (7); **elkartean sartzeko** (8); **elkartearekin bat** (6); **elkartearekin batera** (9); **elkartearekin elkarlanean** (8); **elkartearekin eta** (10); **gure elkartean** (7); **hemen elkartearekin** (8); **ikastolen elkartean** (6); **kultur elkartean** (6); **latsa elkartean** (11)

alde elkartearen (10); **alde elkartearen babes** (6); **bai elkartearen** (10); **bakea bai elkartearen** (6); **begiraleak elkartearen** (10); **bertsozale elkartearen** (27); **bertsularien lagunak elkartearen** (9); **biktimen elkartearen** (9); **biltzarra elkartearen** (7); **da elkartearen** (13); **duen elkartearen** (6); **editoreen elkartearen** (7); **egunkariaren alde elkartearen** (10); **eliz elkartearen** (12); **eliz elkartearen aingeruari** (7); **elkartearen aingeruari** (7); **elkartearen alde** (10); **elkartearen arabera** (29); **elkartearen aurrean** (7); **elkartearen babes** (6); **elkartearen baitan** (10); **elkartearen barruan** (12); **elkartearen berri** (12); **elkartearen besta** (11); **elkartearen bidez** (11); **elkartearen biltokian** (10); **elkartearen biltzar** (40); **elkartearen biltzar nagusia** (31); **elkartearen bozeramaileak** (7); **elkartearen buru** (11); **elkartearen egoitza** (12); **elkartearen egoitzan** (24); **elkartearen ekimenez** (6); **elkartearen esanetan** (10); **elkartearen esku** (7); **elkartearen eskutik** (36); **elkartearen eta** (18); **elkartearen gelan** (7); **elkartearen gerizapean** (9); **elkartearen helburua** (7); **elkartearen izena** (6); **elkartearen izenean** (37); **elkartearen laguntza** (7); **elkartearen laguntzarekin** (19); **elkartearen lana** (9); **elkartearen lehen** (6); **elkartearen lehendakari** (8); **elkartearen proposamena** (6); **elkartearen sorrera** (8); **elkartearen urteko** (7); **elkartearen ustez** (16); **enpresaburuen elkartearen** (7); **eta elkartearen** (16); **etxerat elkartearen** (7); **euskal idazleen elkartearen** (8); **gerediaga elkartearen** (8); **hatsa elkartearen** (7); **hemen elkartearen** (13); **hiru kultur elkartearen** (6); **idazleen elkartearen** (11); **ikastolen elkartearen** (14); **kirol elkartearen** (8); **kultur elkartearen** (19); **lagunak elkartearen** (11); **zain elkartearen** (6)

aldeko elkarteek (13); **auzo elkarteek** (6); **auzo elkarteen** (10); **auzo elkartek** (7); **bi elkarteen** (9); **dute elkarteek** (8); **duten elkarteek** (17); **egiten duten elkarteek** (7); **eliz elkarteari** (18); **eliz elkarteari idatz** (7); **eliz elkarteei** (14); **eliz elkarteei esaten** (7); **eliz elkarteen** (6); **elkarteari diru** (6); **elkarteari eman** (9); **elkarteari ere** (6); **elkarteari esker** (13); **elkarteari eta** (8); **elkarteari idatz** (7); **elkarteari idatz iezaiozu** (7); **elkarteei esaten** (7); **elkarteei esaten diena** (7); **elkarteek antolaturik** (14); **elkarteek beren** (6); **elkarteek deituta** (6); **elkarteek ere** (10); **elkarteek eta** (15); **elkarteek ez** (11); **elkarteek salatu** (6); **elkarteen artean** (24); **elkarteen arteko** (6); **elkarteen eta** (6); **elkarteen federazioak** (22); **elkarteen gelan** (13); **elkarteen izenean** (6); **elkarteetako ordezkariak** (15); **elkarteetako ordezkariek** (10); **elkartek bat** (7); **elkartek bat egin** (7); **elkartek egin** (8); **elkartek eta** (12); **elkartek parte** (11); **elkartek parte hartu** (6); **enpresaburuen elkarteek** (8); **espirituak eliz elkarteei** (7); **eta elkarteei** (6); **eta elkarteek** (18); **eta elkarteen** (21); **eta elkarteetan** (7); **eta elkartek** (22); **etorkinen elkarteen** (6); **etxeko elkarteen** (11); **etxeko elkarteen gelan** (11); **euskal elkarteen** (7); **euskara elkarteek** (9); **euskara elkarteen** (27); **euskara elkarteen federazioak** (14); **guraso elkarteek** (7); **gurasoen elkarteek** (11); **hainbat elkartek** (35); **herriko elkarteen** (10); **herriko etxeko elkarteen** (11); **kontsumitzaileen elkarteek** (20); **lau elkartek** (6); **topagunea euskara elkarteen** (9); **zenbait elkartek** (6)

adiskideen elkarteko (9); **aldeko elkarteko** (14); **aranzadi elkarteko** (6); **aranzadi zientzi elkarteko** (7); **aranzadi zientzia elkarteko** (13); **arin elkarteko** (14); **atxilotuen senideen elkarteko** (7); **autonomia elkarteko** (7); **auzo elkarteko** (45); **auzo elkarteko kideak** (7); **baztandarrak elkarteko** (14); **belzuntze elkarteko** (9); **bertsozale elkarteko** (27); **bertsozale elkarteko lehendakariak** (6); **bertsularien lagunak elkarteko** (6); **biarritz culture elkarteko** (6); **biktimen elkarteko** (34); **biligarroak elkarteko** (16); **culture elkarteko** (6); **da elkarteko** (8); **du elkarteko** (11); **duen elkarteko** (6); **dute elkarteko** (17); **dute elkarteko kideek** (6); **editoreen elkarteko** (11); **ekoizleen elkarteko** (10)

elkarteko arduradun (8); **elkarteko arduradunak** (8); **elkarteko arduradunek** (18); **elkarteko bazkide** (13); **elkarteko biltzar** (8); **elkarteko bozeramaile** (12); **elkarteko bozeramailea** (6); **elkarteko bozeramaileak** (7); **elkarteko buru** (13); **elkarteko burua** (12); **elkarteko buruak** (16); **elkarteko eledun** (9); **elkarteko eta** (11); **elkarteko idazkari** (24); **elkarteko idazkari nagusi** (6); **elkarteko idazkari nagusiak** (8); **elkarteko idazkariak** (8); **elkarteko kide** (133); **elkarteko kide da** (6); **elkarteko kide eta** (10); **elkarteko kide izatea** (15); **elkarteko kide izateagatik** (8); **elkarteko kidea** (42); **elkarteko kidea da** (12); **elkarteko kideak** (90); **elkarteko kidearen** (16); **elkarteko kideei** (6); **elkarteko kideek** (83); **elkarteko kideen** (11); **elkarteko lehen** (8); **elkarteko lehendakari** (62); **elkarteko lehendakari eta** (6); **elkarteko lehendakaria** (52); **elkarteko lehendakaria da** (8); **elkarteko lehendakariak** (68); **elkarteko lehendakariaren** (8); **elkarteko ordezkari** (18); **elkarteko ordezkaria** (6); **elkarteko ordezkariak** (45); **elkarteko ordezkariek** (17); **elkarteko partaide** (6); **elkarteko presidente** (42); **elkarteko presidentea** (18); **elkarteko presidenteak** (61); **elkarteko tke** (10); **elkarteko zuzendari** (11); **elkarteko zuzendaria** (6); **elkarteko zuzendariak** (11); **elkarteko zuzendaritza** (6)

enpresaburuen elkarteko (14); **enpresen elkarteko** (7); **eta elkarteko** (19); **eta lesbianen elkarteko** (6); **etxerat elkarteko** (9); **euskal autonomia elkarteko** (7); **euskal editoreen elkarteko** (7); **euskal haziak elkarteko** (6); **euskal idazleen elkarteko** (18); **euskara elkarteko** (8); **gaizkile elkarteko** (12); **gaizkile elkarteko kide** (11); **gaiztagin elkarteko** (16); **gaiztagin elkarteko kide** (15); **gerediaga elkarteko** (7); **guraso elkarteko** (7); **gurasoak elkarteko** (27); **gurasoak elkarteko kideak** (6); **gurasoak elkarteko ordezkariak** (6); **gurasoen elkarteko** (15); **gure elkarteko** (7); **hautetsien elkarteko** (6); **haziak elkarteko** (6); **idazleen elkarteko** (27); **ikastolen elkarteko** (33); **kluben elkarteko** (14); **kluben elkarteko tke** (10); **kontsumitzaileen elkarteko** (7); **kultur elkarteko** (13); **lagunak elkarteko** (12); **lagunen elkarteko** (6); **lauburu elkarteko** (6); **lesbianen elkarteko** (6); **merkatarien elkarteko** (11); **musulmanen elkarteko** (6); **nafarroako ikastolen elkarteko** (11); **senideen elkarteko** (12); **traineru kluben elkarteko** (6); **traineruen kluben elkarteko** (8); **zientzi elkarteko** (7); **zientzia elkarteko** (16); **zuen elkarteko** (11); **zuten elkarteko** (8)

baztandarrak elkartekoak (6); **elkarten gelan** (9); **etxeko elkarten** (9); **etxeko elkarten gelan** (8); **hainbat elkartetako** (7); **herriko etxeko elkarten** (9)

---

elkarteburu ik **elkarte 6**.

---

elkartegi *iz* elkarte taldea.

Orain arte Bizkaian sortutako zortzi **elkartegiek** 125 enpresa eta 1.400 lanpostu sostengatzen dituela gogoratu zuen Aranak. Berria - Ekonomia

Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna areagotzeko jarri dute abian Zamudioko Teknologi **Elkartegiko** lokala. Berria - Ekonomia

Joan den abenduan Donostiako Udalarekin sinatutako akordioari esker, %60 handituko da teknologia **elkartegiak** erabiltzen duen eremua. Berria - Ekonomia

---

elkartekide *iz* elkarte bateko kidea.

212 **elkartekide** (departamenduko bortzgarren elkartea kide kopuraren partetik), 11 talde xapelketetan arizan direnak. Herria

Elkarte osoa da sakratua, eta **elkartekide** guztien artean dago Jauna. Jose Antonio Mujika

Bi gizakien arteko elkarte batean, ezinbestekoa da **elkartekide** bati boto haztatua ematea, oinarri hartuta abantailadun sexuari aitortzen zaion lehentasuna. Iban Zaldua

Elkartekide guziak gomit dira biltzar hortarat. Herria

Elkartea bera azkartu da azken denbora hotan, **elkartekide** gehiago bereganaturik. Herria

Goizean, ezohiko batzarra egingo dute **elkartekideek** , azken urteen balantzea eta etorkizuneko erronken inguruko hausnarketa egiteko. Berria - Kultura

Biltzar hori legez bali izaiteko, hunenbeste **elkartekide** behar da han kausitu. Herria

Ondotik aurresku kartsu bat elizako atean, ohoratuz **elkartekide** xaharrenak. Herria

Eraztunaren **Elkartekideak** etxe eder batean bizi ziren Gandalfekin batera, eta nahi zuten moduan ibiltzen ziren hirian batera eta bestera. Agustin Otsoa

Elkartekideentzat : 30 euro. Herria

---

elkartekoi *izond* elkartzeko joera duena.

Ez zen jauregi bat, baina harat aldatzean, banuen esperantza neure bizilagunaren izaera **elkartekoiak** bakea emanen zuen puska baterako. Aingeru Epaltza

---

elkartetxe *(orobat **alkartetxe** g.er.) iz* Eusko Alkartasuna alderdiaren egoitza.

Aratsaldeko 7etan, bilkura idekia **Elkartetxean** (47, Pannecau karrika) EAko zuzendaritzako kide eta hautetsi handien partehartze eta presentziarekin (legebiltzarkideak, biltzarkideak, zinegotziak etabar...). Herria

Joanden ortzegun aratsean jendalde pollita bildu da Baionako **Elkartetxean** Sabin Intxaurraga Sailburuaren entzuteko. Herria

Eusko Alkartasunak antolaturik, Mikel Irujok eskainiko du mintzaldi bat Senpereko **Elkartetxean**, maiatzaren 19an, ostegun aratsaldeko 6.30etan, Europako Lege Nagusiaz. Herria

Atzo egin zuten asanbladan **alkartetxe** guztiak izan ziren, Zuzendaritza Nazionalaren aldekoa den Grosekoa ezik, eta EA eta EAJren arteko koalizioari «aldekotasunik aldekoena» adierazten dion dokumentua hitzartu zuten. Berria - Euskal Herria

EAko presidente Begoña Erraztik «herriaren aldeko konpromisoa hartzeko garaia» dela azpimarratu zuen atzo Gasteizen, **Alkartetxe** baten inaugurazioan. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baionako elkartetxea** (4); **baionako elkartetxeak** (5); **baionako elkartetxean** (22); **baionako elkartetxean pannecau** (7); **da baionako elkartetxeak** (3); **da baionako elkartetxean** (6); **elkartetxean pannecau** (7); **elkartetxean pannecau karrikan** (5)

---

elkartetxo *iz adkor* elkarte txikiak.

Badira euskararen eta vascoen inguruko mila **elkartetxo** gurean, izenez behintzat, beren ekintza zehatz eta bereiztuak betetzeko sortzen direnak, baina, azkenean festatto ergel berberak eginez bukatzen dituzte beren helburuak. Patziku Perurena

---

elkartezin *iz* ezin elkartuzkoa.

Ia ezertan ez dute kointziditzen, bi mundu **elkartezin** dira, bi mundutatik ari dira hitz egiten. Joxe Azurmendi

Ezin zitekeen egia izan, ezinezkoa zen bi pertsona haiek, **elkartezinak** , areago etsaiak, bata bestearekin egotea. Juan Kruz Igerabide

Nork azpimarratzen du, nori interesatzen zaio behin eta berriro bi gizarte bereizi eta **elkartezinak** aurkeztea? Berria - Harian

Euskal gizartea inoiz baino zatituago dago, **elkartezinak** diruditen proiektu politikoengatik. Berria - Euskal Herria

Ez zen aprobetxatu, ala ezin da aprobetxatu, imajinario zinez liberal bat **elkartezina** delako antolatu den gisako Estatu batekin, gutxien-gutxienez erradikalki federala ez den bitartean. Joxe Azurmendi

Zentzu honetan bakarrik da "politikoa" Herder-en *Volksgeista*: klase gorekin edo Estatuarekin **elkartezina** izatean. Joxe Azurmendi

---

elkartoki *iz* elkartzeko tokia.

Erromeria, gazteen **elkartoki** . Berria - Kultura

Badakit heriotzara naramazuna, bizidun guztien **elkartokira** . Elizen arteko biblia

---

elkartrukagarritasun *iz* elkartruka daikezteenen nolakotasuna.

Gauza bera gertatzen da Jainkoaren izatearen froga transzendentalarekin, zerizan oroerrealaren eta beharrezkoaren adigaien **elkartrukagarritasunean** soilik funtsatzen den eta beste inon bilatu ezin denarekin. Ibon Uribarri

---

elkartrukaketa *iz* elkartrukatzea.

Proiektuaren helburua bi aldeetako «garapen ekonomikoa laguntzen duten proiektuen sostengatzea» da, baita ere Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako «agente sozioekonomikoen arteko **elkartrukaketen** ugaritzea». Berria - Euskal Herria

---

elkartrukatu, elkartruka, elkartrukatzen du *ad* elkarrekin trukatu.

Internautok saretik filmak jaitsi eta **elkartrukatu** zituzten, eta horregatik hiru hilabeteko kartzela zigorra eta 2.000 eta 5.800 euro arteko isuna ordaindu beharko dute. Berria - Kultura

MIDASeko kide garenon artean informazioa **elkartrukatzen** dugu, eta bakoitzaren arazoak eta proiektuak ezagutu. Berria - Euskal Herria

Erdibana ikasten zituzten ikasgaiak, eta, azterketa garaian, jakinduria hura guztia **elkartrukatzen** zuten disimulu handiz. Aritz Gorrotxategi

Elkartrukatzen hasi gara bateko eta besteko bizipen eta esperientziak. Andoni Egaña

Egun hauetan, iritziak eta esperientziak **elkartrukatzeko** aukera izan dugu. Berria - Ekonomia

Ideiak eta proposamenak **elkartrukatzeko** eremua, elkarri entzuteko eremua den heinean, aurrera doa. Berria - Mundua

Iritziak plazaratu eta **elkartrukatu** egiten dira. Berria - Kultura

Ekonomia estandarrak merkatuan **elkartrukatzen** diren ondasunen azterketara jotzen du batik bat, hau da, truke-balio bat, moneta balio bat duten ondasunetara. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kolektiboen beharretara egokitutako kultura bat sor daiteke, humanistago eta jakinduria **elkartrukatzera** zabalduago bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

elkartrukatze *iz* elkarrekin trukatzea.

Aldi berean, ni François Mauriac eta beste hainbat autore frantses irakurtzen ari nintzen nire kabuz, eta elkarren artean halako harreman eta **elkartrukatze** berezi bat sortu genuen. Ana Urkiza

elkartruke 1 *iz* elkartrukatzea.

Urre-patroia XIX. mendearen erdialdera garatu zen, Europako eta Ipar Ameriketako herrialde industrializatuen arteko **elkartrukeak** errazteko. Iñaki Heras

Akordioak sinatzaileen arteko harremanak sendotzeko, kohesioa lantzeko, ideien **elkartrukea** ahalbidetzeko eta indarrak norabide berean jartzeko aukera eman duela dio Lasak. Berria - Harian

Diziplinen arteko harremana eta **elkartrukea** espazioan eta denboran, eta iragankorrak eta iraunkorrak diren gauzen arteko oposizioa. Berria - Kultura

Elkartrukeen jarioaren azterketa kuantitatiboa. Xabier Arregi

Eurostat-en datuen arabera, 1999. eta 2003. urteen artean bikoiztu egin dira Europako Batasunaren eta Txinaren arteko **elkartrukeak**. Berria - Ekonomia

Merkatu-mekanismoak ez ditu barneratzen hirugarren batzuen gainean eragindako ondorioak, beraz, prezioek ez dute benetan islatzen **elkartrukeek** eragiten duten balioa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sistema kapitalistak [...] lanaren nazioarteko zatiketa sortzen du, mendekotasunezko erlazioak eta **elkartruke** asimetrikoak dituen zatiketa. Iñaki Heras

Zentroaren eta periferiaren espezializazio produktiboak beren arteko **elkartruke** desorekatuak sustatzen ditu. Iñaki Heras

Aurten ere, beste herrialdeetako bertsolari gazteekin harremanak lantzeko ekitaldi ugari izango dira, haien esperientziak ezagutu, bertsotan egin eta **elkartruke** aberasgarria eduki nahirik. Berria - Kultura

Asteroko **elkartrukea** : [...]. Joseba Urteaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Konfiantza **elkartrukea** izan da. Berria - Kirola

Enpresaren interes **elkartrukean** sartu zen, haietaz baliatu zen bera, haiek berataz adina, hanka sartu zuen, ez zuen asmatu. Berria - Kirola

Nazioarteko merkataritza **elkartrukeak** ahalik eta gehien areagotzea. Iñaki Heras

Mugimendu horien parterik handienak ez du zer ikusirik merkataritza **elkartrukeekin**, ez eta inbertsio produktiboekin. Iñaki Heras

Eskuduntzen banaketa, mendetasun hierarkikoa, osagarritasun funtzionala, informazio eskaera, transmisioa eta **elkartrukea**. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta elkartruke (4); **eta elkartrukea** (3)

---

elkartu *(**3.747** agerraldi, **257** liburu eta **46.014** artikulutan; ETCn **10.524** agerraldi)* , elkar(tu), elkartzen da/du *ad* elkarrekin jarri; elkarri laguntzeko, elkarrekin zerbait lortzeko bildu edo batu.

-Egongelan **elkartuko** gara -xuxurlatu zion Harryk. Oskar Arana

Kartzelan **elkartu** ginen hurrena, Parisko garaiez geroztik. Javi Cillero

Goetheplatzen **elkartu** ginenean, ordea, paseatzea nahiago zuela esan zidan. Anjel Lertxundi

Larunbat goizean Ikastetxetik alde egin nuen, goizeko bederatzietan Elizpean **elkartu** behar genuelako. Joseba Sarrionandia

Hurrengo igandean, zera, hitzordua jarrita **elkartu** gintuan. Irene Aldasoro

Larunbatero eta igandero **elkartzen** ziren, batzuetan maizago, jairen bat bazen. Koro Navarro

130 lagun **elkartu** dira Tokioko batzarrean. Berria - Gaiak

Eguerdian deituta zeuden manifestazioetan 4.000 lagun **elkartu** ziren Bilbon. Berria - Harian

Duela hamar urte **elkartu** ziren ELA eta LAB lehen aldiz, Lan Harremanen Euskal Esparruaren alde. Berria - Ekonomia

Zenbait alderdi txiki ez dira kandidatura bateratura **elkartu**. Berria - Mundua

Bi komunitateak federazioan **elkartzea** aurreikusten da. Berria - Mundua

Handik aste batzuetara, Marokoko "osteratxo"aren amaiera ona ospatzera **elkartu** ginenean. Bernardo Atxaga

Gorabehera arrunt samarrei buruz mintzatu ginen, ezer geurerik esateari beldur bagenio bezala, uste dut eguraldia ere aipatu genuela, bi arrotz lehen aldiz **elkartzen** direnean bezala. Joxean Agirre

Etorkiz noblea eta jakintza haundikoa, gazteluko buru zela gizona, etsaiarekin **elkartu** omen zen, nafarrok gaztelauekin gerra latzak bizi genituen garaian. Patziku Perurena

Hemeretzi urterekin **elkartu** ginenetik ez gara gehiago apartatu. Arantxa Iturbe

Beren ezberdintasunean **elkarturik**, ebanjelio-proiektu bera bizimolde ezberdinetan biziko dute. Askoren artean

Izango ote dugu han **elkartzeko** aukerarik? Iñaki Mendiguren

Begira, Mijuiev, patuak **elkartu** gaitik. Jose Morales

Musikak aspaldi **elkartu** zituen, 60ko hamarkadan, boskote errepikaezin batean. Berria - Kultura

Osterantzeko gauza guztien gainetik, musikarekiko afizioak **elkartzen** zituen Luigi eta Mentxu, Gainerako jendeak pentsatuko zuen bizi zuten unearen gogorrak **elkartzen** zituela bi emakumeak besarkada estuan. Josu Landa

Narrastiak agertu zirenean, duela 300 milioi urte, denak **elkartu** eta pentsatzen hasi ziren nola konpondu uraren beharra izatea ugaltzeko, nola alde egin etxetik mundu berrien bila joateko. Luis Elberdin

Hurrengo orduak ezpainak elkarri lotuta igaro genituen, eskuak **elkartuta**. Jon Muñoz

Nanak-ek sortu zuen erlijio hori, islama eta hinduismoa **elkartu** nahian. Gotzon Garate

Herri musika eta bertsularitza **elkarturik**, bi eguneko jardunaldiak proposatuak dira Oiartzunen, azaroaren 30ean eta abendoaren 1ean. Herria

Elizan dauden muturreko bi alderdiak **elkartzeko** erdibideko aukera hartu du Canterburyko gotzainak. Berria - Gaiak

Mazedonian ere, Euripides hilobiratua dagoen lekuan, monumentuaren ezkerretik eta eskuinetik etorriz bi ibai **elkartzen** dira. Santiago Iruretagoiena

Erdialdeko Asiako biribilunean beste leku hauetako bideak **elkartzen** ziren: iraniar goi-ordokiaren bidez Tigris-Eufrates arrokoak, Hindu Kush mendiguneko igarobideetan zehar Indiakoak, [...]. Iñaki Mendiguren

Hala gauzen haziek eurek, berez eta ausaz elkar joka, hamaika eratara kasualki, alperrik eta hutsalki **elkartu** ondoren, azkenik batzuek asmatu zuten bat egitea, gorputz handiok bat-batean betiko sortarazteko. Xabier Amuriza

Ez dira zientzia eta teknika, teoria eta praktika **elkartu** teknozientzia berri batean? Askoren artean

Bi zuzen horiek **elkartzen** ez badira, ez alde batetik eta ez bestetik, pa-ra-leloak dira orduan! Jon Muñoz

Konbinazio horrek ez luke izateko arrazoirik, gogoak **elkartuko** ez balitu forma osagaiak esanahiaren aldetik. Isabel Arrigain

Transmisio-prozesuan banatu egin diren kultur elementu osagarriak bildu eta **elkartuz**. Iñaki Mendiguren

Nola, letrak **elkarturik**, hitz bat sortzen den beti, nahiz eta batzuetan deabruak soilik jakin haren esanahia. Jose Morales

Hamabost salmo dira guztira eta Frantziskok salmo askotako zatiak **elkartuz** eta moldatuz egin zituen denak, bi izan ezik. Askoren artean

Atomoaren nukleoa osatzen duten partikulak eta horiek **elkartzen** dituzten indarren inguruan eginiko ikerketa. Berria - Gaiak

Hasieran bakoitza bere aldetik zabaldu zen, gero **elkartuz** joan ziren, gaur egun duten hitzaldi bateratu baten forma hartu zuten arte. Askoren artean

Onartu beharra dauka berba zaharrei adiera berriak emateaz gain, kupidarik gabe bere gisara moldatu, **elkartu** eta kontrajarri dituela askotan. Koldo Izagirre

2 (norbait edo zerbaitekin)

Arimak Jainkoarekin **elkartzeko** duen bidea. Iñaki Mendiguren

Zoritxarra besterik ematen ez dion jendearekin **elkartzen** da. Bernardo Atxaga

Laster **elkartu** ziren ama-alabekin. Koro Navarro

Aitarekin **elkartzeko** itxaropena! Anjel Lertxundi

Hildako haien artean Sangarre buhamea zegoen, hirian alferrik sartzen saiatu zena Ivan Ogareffekin **elkartu** nahian. Karlos Zabala

Telefonoz deitu zioten eta gonbidatu ere bai Souslovekin **elkartzeko**. Felipe Juaristi

Posta etxe batera iristean, bi berriemaileak jaitsi eta Mikel Strogoffekin **elkartzen** ziren. Karlos Zabala

Jaunarekin **elkartzen** dena, berriz, berarekin espiritu bat bera egiten da. Elizen arteko biblia

Gure mugimenduarekin **elkartu** ziren, kurduon auziaren alde egiteko. Juan Kruz Igerabide

Hitz gutxitan esan nion borrokalariekin **elkartu** nahi genuela. Juan Kruz Igerabide

Haurren artean elikagaiak banatzea ez da aski: euren senideekin **elkartu**, osasuna eta hezkuntza eskubideak bermatu eta abusurik jasan ez ditzaten neurriak hartu behar dira. Berria - Harian

Hemendik dator oso eredugarria ez den kristautasun modernoaren paper politikoa: hemeretzigarren mendean monarkiarekin eta aristokraziarekin **elkartu** zen demokrazia liberala salatzeko; hogeigarren mendean demokrazia liberalarekin **elkartu** zen totalitarismoa salatzeko. Iñaki Mendiguren

Zapatak dira munduarekin dugun lotura nagusia, lur hurkoarekin **elkartzen** gaituen mintz kruziala. Harkaitz Cano

3 (norbait edo zerbaiti)

Basamortuan, harenganako jelosiaz, aurka altxatu zitzaizkion beretar ez zirenak: Datan eta Abirami **elkarturiko** jendea eta Koreren taldea, haserre-suminez beterik. Elizen arteko biblia

Talde nagusi horri Errusiaren auzoko hurbilenak **elkartu** zitzaizkion, Baltikoko ekialdeko kostan zeudenak. Iñaki Mendiguren

Elkarte eta Sagardotegietatik beren etxeetara erretiratuz zihoazen edo sokamuturrean lasterka egiteko zain zeuden gautxori batzuk **elkartu** zitzaizkien. Askoren artean

Ijito batzuk **elkartu** berri zitzaizkien eta hala-moduzko flamenko arrasto eta gitarra doinu garratz, baina hala ere ederrak, entzuten ziren tarteka. Harkaitz Cano

Berehala garraztu zitzaidan, ordea, eztia: kalean aurrera gindoazela, Klaus **elkartu** zitzaigun atzetik oihuka etorrita. Anjel Lertxundi

Hogei minutu geroago, Trelawney andereñoaren ikasgelara zeraman zurubiaren barrenean **elkartu** zitzaien Hermione, oso urduri eta nekatuta. Iñaki Mendiguren

Soinu harmoniagabe haiei ehiza-adarraren nota guztiz zorrotzak eta danborraren errepika **elkartu** zitzaizkien. Koro Navarro

Ibarretxe plana, EAE estatu espainolari **elkartutako** nazio libre bihurtu nahi duena, ez dago joko demokratikoaren arauetan oinarrituta. Berria - Euskal Herria

Beherakoan Cioni **elkartu** zitzaien (Fassa), eta esprint arraroan, denetan ahulen zegoena nagusitu zen: Jeker. Berria - Kirola

4 (sexualki)

Eta emaztearekin **elkartzerakoan**, jaiki biok, egin otoitz eta eskatu zeruko Jaunari, zuetaz errukitu eta osasuna eman diezazuen. Elizen arteko biblia

Lilith, gaueko erregina edo gaueko mamua, Jahvek sortutako lehenengo emakumea izan omen zen, Eba bera baino lehenago lokatzez egina, baina arima gaizkiari atxiki omen zion eta espiritu gaiztoekin **elkartuz** izaki gaiztoak sortu zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bizidunak ez dira ugaltzeko **elkartzen**, plazera lortzeko baizik. Luis Elberdin

Badira espezie hermafroditak, hala, batzuetan beste kide batekin **elkartzen** dira, eta bestetan beren kabuz moldatzen dira. Luis Elberdin

Elkartu eta besarkatu; pasioa, eta, ondoren, oroitzapen on bat. Luis Elberdin

Elkartzea erabaki ondoren, jolasean hasten dira, elkar igurzten eta miazkatzen. Luis Elberdin

Gehiagotan **elkartu** ez ezik, kalitatea ere areagotu genuen, hau da, gehiagotan eta hobeto egiten genuen. Luis Elberdin

Ondoren, putetxean, putarekin **elkartu** ordez, gudariak putari ez dio muinoia erakutsi besterik egin nahi. Markos Zapiain

5 (era burutua izenondo gisa)

Niri ere asko gustatzen zaizkit familia **elkartuak**. Aitor Arana

Bi aldare **elkartuen** bolumena zaharrarena halako bi zen, izan ere. Jon Muñoz

Eman dezagun *dé-faire* hitz **elkartua** dugula. Isabel Arrigain

Badaude banako batzuk hitzak baino handiagoak direnak, hala nola hitz **elkartuak**. Orobat, gertaera fonetiko bat dago *Springbrunnen, Ritschule*-ren tankerako **elkartuen** oinarrian. Isabel Arrigain

Abizen **elkartu** batzuetan, hitz bat eta bere antonimoa aurkitu ahal ditugu: Beheregarai, Garaiabeitia, Beitialarrangoitia, Etxebarriazarraga. Iñaki Arranz

Rio Negroko ur marroi iluna, gai **elkartu** organiko ugari baitu bere baitan. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldiz elkartu (6); **arbasoekin elkartu** (6); **asko elkartu** (5); **atarian elkartu** (5); **atarian elkartu ziren** (4); **atzo elkartu** (4); **aurrean elkartu** (7); **aurrean elkartu ziren** (6); **bakar batean elkartu** (4); **bat elkartu** (8); **bat lagun elkartu** (17); **batean elkartu** (23); **batean elkartu ziren** (6); **batekin elkartu** (23); **batekin elkartu zen** (6); **batzuekin elkartu** (5); **batzuk elkartu** (6); **berarekin elkartu** (7); **berarekin elkartu bezain** (4); **bere arbasoekin elkartu** (6); **berehala elkartu** (5); **berriro elkartu** (24); **berriro elkartu eta** (4); **berriro elkartu ziren** (4); **berriz elkartu** (13); **berriz elkartu ziren** (5); **bertan elkartu** (7); **besteekin elkartu** (5); **biak elkartu** (5); **denak elkartu** (6); **denak elkartu eta** (4); **denok elkartu** (5); **dira elkartu** (5); **dozenaka lagun elkartu** (4); **eguerdian elkartu** (5); **ehunka lagun elkartu** (6)

elkartu ahal (9); **elkartu aurretik** (5); **elkartu baino** (5); **elkartu behar** (30); **elkartu behar dugu** (4); **elkartu beharra** (7); **elkartu bezain** (6); **elkartu bezain laster** (6); **elkartu da** (29); **elkartu den** (7); **elkartu dira** (103); **elkartu diren** (14); **elkartu ditu** (25); **elkartu dituen** (4); **elkartu dituzte** (5); **elkartu du** (5); **elkartu egin** (28); **elkartu egin behar** (6); **elkartu egin dira** (4); **elkartu egin ziren** (8); **elkartu egiten** (10); **elkartu ere** (4); **elkartu eta** (134); **elkartu eta gero** (5); **elkartu ez** (7); **elkartu gabe** (7); **elkartu gara** (16); **elkartu ginen** (47); **elkartu ginenean** (15); **elkartu izan** (10); **elkartu izana** (9); **elkartu nahi** (38); **elkartu nahi ditu** (4); **elkartu nahi izan** (5); **elkartu nahian** (4); **elkartu naiz** (6); **elkartu nintzen** (6); **elkartu ohi** (6); **elkartu ondoren** (7); **elkartu ostean** (7); **elkartu zarete** (5); **elkartu zen** (86); **elkartu zen atzo** (4); **elkartu zen eta** (5); **elkartu zenean** (7); **elkartu zirela** (7); **elkartu ziren** (324); **elkartu ziren atzo** (32); **elkartu ziren eta** (16); **elkartu zirenean** (20); **elkartu zirenek** (4); **elkartu zituen** (41); **elkartu zituzten** (6); **elkartu zitzaien** (9); **elkartu zitzaion** (13); **elkartu zitzaizkien** (11); **elkartu zitzaizkion** (8); **elkartu zuen** (6)

emakume elkartu (4); **emakumeak elkartu** (6); **ere elkartu** (25); **ere elkartu ziren** (4); **eskuak elkartu** (9); **eta elkartu** (12); **ez elkartu** (7); **gehiago elkartu** (7); **gehiago elkartu dira** (5); **goizean elkartu** (4); **guztiak elkartu** (12); **guztiak elkartu eta** (4); **haiek elkartu** (4); **haiekin elkartu** (5); **han elkartu** (11); **harekin elkartu** (11); **hartan elkartu** (4); **hitz elkartu** (6); **horretan elkartu** (4); **inguru elkartu** (26); **inguru elkartu dira** (4); **inguru elkartu ziren** (19); **inguruan elkartu** (7); **inguruan elkartu ziren** (4); **jendea elkartu** (7); **kideak elkartu** (4); **lagun elkartu** (86); **lagun elkartu dira** (7); **lagun elkartu ziren** (71); **lagun inguru elkartu** (22); **lehen aldiz elkartu** (4); **milaka lagun elkartu** (6); **musikariak elkartu** (4); **nirekin elkartu** (6); **nola elkartu** (15); **norekin elkartu** (4); **onenak elkartu** (4); **ordezkariak elkartu** (4); **pertsona elkartu** (5); **plazan elkartu** (8); **plazan elkartu ziren** (4); **presidentearekin elkartu** (5); **presidentearekin elkartu zen** (4); **taldeak elkartu** (4); **ugari elkartu** (5); **zergatik elkartu** (4)

batean elkartuak (4); **elkartua eta** (5); **elkartuak dira** (4); **elkartuak eta** (6); **hitz elkartuak** (11); **hitz elkartuen** (4); **hitz elkartuetan** (4)

arbasoekin elkartuko (5); **asko elkartuko** (4); **bat elkartuko** (4); **berriro elkartuko** (9); **berriz elkartuko** (6); **elkartuko da** (26); **elkartuko dela** (6); **elkartuko dira** (106); **elkartuko dira gaur** (9); **elkartuko diren** (8); **elkartuko ditu** (13); **elkartuko dituen** (5); **elkartuko dituzte** (4); **elkartuko gaituk** (6); **elkartuko gara** (26); **elkartuko ginela** (5); **elkartuko ginen** (6); **elkartuko naiz** (7); **elkartuko zaio** (5); **elkartuko zela** (4); **elkartuko zirela** (6); **elkartuko ziren** (9); **elkarturik eta** (7); **elkartuta egon** (4); **elkartuz eta** (7); **elkartuz gero** (5); **ere elkartuko** (4); **gaur elkartuko** (4); **gazteak elkartuko** (4); **gazteak elkartuko dira** (4); **han elkartuko** (5); **lagun elkartuko** (4); **laster elkartuko** (5); **noiz elkartuko** (5)

---

elkartuki *iz* gauzaki elkartua.

Baliteke gure esperientzia-ezagutza bera ere zirraren bidez jasotzen dugunaren eta (sentsuzko zirraren bitartez suspertua besterik ez den) gure ezagumen berak sortzen duenaren **elkartukia** izatea. Ibon Uribarri

Zatigarritasunak **elkartuki** bat aurresuposatzen badu ere, ez du halabeharrez substantzien **elkartukirik** eskatzen, baizik substantzia bat eta bakarraren (ahalmen ezberdinen) mailena besterik ez. Ibon Uribarri

Hainbat zerizanen artean banatuta dauden errepresentazioek (adibidez, bertso bateko banako hitzak) ez dutenez inoiz pentsamendu oso bat (bertsoa) osatzen, orduan pentsamendua ezin zaio **elkartuki** bati atxiki **elkartukia** den heinean. Ibon Uribarri

Izan ere, **elkartukiak** pentsatuko lukeela onartzen baldin badugu, orduan bere zati bakoitza pentsamenduaren zati bat litzateke, baina denak batera hartuta barnebilduko lukete pentsamendu osoa lehen-lehenik. Ibon Uribarri

Elkartukitik abiatutako argipenik baimentzen ez diolako. Ibon Uribarri

---

elkartze **1** *iz* elkarrekin jartzea; elkarri laguntzeko, elkarrekin zerbait lortzeko biltzea edo batzea; sexualki elkartzea.

Neuk imajinatu nuen zer zen gizonaren eta emakumearen arteko **elkartzea**, baina Jacquek egiaztatu zidanean, harro samar sentitu nintzen neure kabuz asmatu nuelako. Josu Zabaleta

Ikus dezagun, lehenbizi, **elkartzearen** alderditik. Isabel Arrigain

Badira eguna urratu arte irauten duten **elkartzeak**, eta beste batzuk, berriz, aitaren batean amaitzen direnak. Luis Elberdin

Betiraun guztitik hartutako kolpeen eraginez, hainbeste izan eta hainbeste aldakuntza jasanik, era guztietako mugidak eta **elkartzeak** esperimentatuz, azkenik gauzadi hau sortzeko eta irauteko moduko egituretara iritsi dira. Xabier Amuriza

Hiri honetara dator, eta hemen **elkartze** bakoitza gertatuko zaio mingarria, desatsegina eta estua. Ander Irizar

Elkartze hauek perpausaren zatien nozioa finkatzen dute. Isabel Arrigain

Hauek hodei txiki berriak sortzen dituzte; gero hauek elkarri batzen eta gehitzen zaizkio eta **elkartzez** handitzen dira eta haizeek arrastatzen dituzte, denborale ohila abiatu arte. Xabier Amuriza

Aurrerago joz, gorputzak edo gauzen lehenkiak dira, edo lehenkion **elkartzez** osatuak. Xabier Amuriza

Orobat, latinezko *quadruplex*-a sintagma bat da, bi **elkartzezko** sailetan oinarritzen delako. Isabel Arrigain

Zeren elementu horien baitan indar ezkutu hori ez balego, ez ziren lurrean erneko bertan erein ez diren hainbat eta hainbat; ez eta itsasoetan eta lurrean hainbat izaki aurrez ar-emeen **elkartze** barik sortuko. Imanol Unzurrunzaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ilunabarreko **elkartze** ilun baten ondoren [...], William Graemek heriotzatik honantzagoko eta agian haratagoko maitasuna eskaini zion Barbara Alleni. J.M. Olaizola "Txiliku"

Elkartze sexuala ez da erlojuaren kontrako lasterketa. Luis Elberdin

Mendebaldeko ideologia politikoaren ezaugarri nagusia, **elkartze** politikoaren printzipio gisa behin eta berriro hurbiltasun geografikoaren akzidente fisikoa hartzea izan da. Iñaki Mendiguren

Segur gaude **elkartze** ofizial honi esker, gure bi herrien bategiteari laguntzen diogula, adiskidetasunean, tolerantzian eta elkarren ganako errespetuan. Herria

Elkartze mentalez osaturiko taldeetan. Isabel Arrigain

Elizaren garaipenaren bidez bakea berriro ezartzeak ez zuen desagertarazi, baizik eta, alderantziz, berretsi egin zuen Jahve eta Kristoren **elkartze** inkongruentea. Iñaki Mendiguren

Elkartze eta berriketaldi klandestinoak zirela esango nuke Bonxeko haiek. Jokin Urain

Bururatu zitzaion bigarren **elkartze** hura lehenengoaren oso antzekoa zela xehetasun guztietan. Joxemari Iturralde

Komeni da lagunari galdetzea zer gustatzen zaion eta elkarrekin hobetzea maitasunezko **elkartzea**. Luis Elberdin

Orain, bat-bateko **elkartze** haren ondotik -ostiralean, beraren etxe aurrean- aldatu egin zen tupustean gertaeren moldea. Oskar Arana

-Hau ustekabeko **elkartze** atsegina! -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

Posible dela, printzipioz, gure ondorengoen etorkizuna hobetzea zenbait neurri baliatuz, hala nola **elkartze** kontrolatu edo "aholkatu"zko sistema bat ezarriz edo bikote bakoitzari baimenduriko haur kopurua doituz. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaueko bileran, **elkartze**-lekura joateko saio serio bat egitea erabaki zuten laurek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Elkartze mailako lotura, berriz, in absentia elkartzen ditu terminoak, sail mnemoniko birtual batean. Isabel Arrigain

Erlazio sintagmatikoak eta **elkartze** erlazioak. Isabel Arrigain

Elkartze multzo bat zein sintagma mota bat. Isabel Arrigain

Elkartze familia baten terminoak, aldiz, ez dira kopuru mugatuan agertzen, ezta ordena jakin batean ere. Isabel Arrigain

Baldin giza harremanek lan sortzailea, maitasuna, artea, balute oinarri, gizakion **elkartze** beharra ederki ase lezakete. Markos Zapiain

1996: Europako Batasunarekin **elkartze** akordio bat sinatu zuen. Berria - Mundua

Ikur linguistikoan parte hartzen duten terminoak, biak psikikoak direla, eta gure burmuinean **elkartze** lotura baten bidez batuak daudela. Isabel Arrigain

Goizean kausitu dituzte **elkartze**-herriaren hegian, menditik datorren haizeak ekarriak bezala. Xabier Montoia

Hortik etorri da ezen, denbora luzean sakabanaturik egonik, **elkartze** eta mugida mota guztiak probatu ondoren, azkenean batu egin direla, euren elkartzetik gauza handiak, lurra, itsasoa, ortzia eta espezie bizidunak, abiarazteko moduan. Xabier Amuriza

Zuzenketa hark adierazpen eta **elkartze** askatasunak bermatzen zituen. Berria - Kultura

Elkartze, manifestazio, askatasun, parte-hartze eta ideologia eskubideak daude jokoan. Berria - Harian

Uko egitea jangurari edo andrearekin **elkartze** nahiari. Jenaro Garate

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itsaso Beltzeko nagusi helenikoak eta eurasiar estepako mendebaldeko badia handiko eszitiar nagusiak probetxuzko merkataritza-**elkartzeari** ekin zioten. Iñaki Mendiguren

Konoaren eta planoaren **elkartzeen** gorabeheren irispiderako proiektu-zirriborroa. Jon Muñoz

Sexu-**elkartzeen** zapalkuntzaren egunak izan ziren. Iñaki Mendiguren

Jainko ezezagun baten eta prostituta baten **elkartzetik** jaio zen Ciril Tourner. Juan Garzia

Herrialde bakar batek Historian izan duen matematikari-**elkartzerik** handiena XVIII. mendearen bukaeran izan zen. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko elkartze (5); **da elkartze** (5); **elkartze bat** (6); **elkartze erlazioak** (4); **elkartze eta** (11); **elkartze honen** (3); **elkartze honetan** (3); **elkartze lekura** (3); **elkartze mailako** (5); **elkartze mailan** (4); **elkartze sexual** (3); **elkartze sexuala** (9); **elkartze sexualak** (7); **elkartze sexualen** (3); **elkartze sexualetan** (3); **eta elkartze** (12); **gure elkartze** (3)

---

elkarulertze *iz* elkar ulertzea.

PSOEko diputatu Eduardo Madinaren ustez, PSOEren gobernua egoteak adostasun eta **elkarulertze** giroa errez dezake. Berria - Euskal Herria

Guztiok orduan genuen ilusioa eta elkarrizketa giroa eredutzat hartu behar dugu, elkarrizketaren bidetik datorrelako akordioa eta **elkarulertzea**». Berria - Euskal Herria

---

elkarzut **1** *izond* beste plano edo lerro zuzen bati buruz, harekin 90 graduko angelua osatzen duena. ik**zut**.

Bazirudien kale **elkarzut** baten aurrez aurre zegoela, eta barre-algarak kar-kar-kar! egiten zion tupustean gibeletik. Mirentxu Larrañaga

Han eta hemen, argi bakan batzuek irudi lausoak eratzen zituzten: izartxoak, marra horizontalak eta lerro **elkarzutak**. Lopez de Arana

Espazioaren hiru dimentsioak inolaz ere ezin ditugu errepresentatu, puntu berean **elkarzutak** diren hiru lerroak ezarri gabe. Ibon Uribarri

Gogoan izan behar da, batetik, tolesdura haragitsuok eta biriketatik aho-sudurretara datorren hodia (trakea) **elkarzutak** direla. Lourdes Oñederra

Lasaitu adi pixka bat, bestela angelu **elkarzutean** jarri beharko diat komunzuloan aparatzeko! Unai Iturriaga

Nola etxegintzan, hasierako erregela okerra bada, eta eskuaira gezurtiak **elkarzuta** zaintzen ez badu eta berunak apur bat albora egiten badu, nahitaez denak gaizki eta oker gelditu behar duen, [...]. Xabier Amuriza

Hirugarren batekiko zut diren bi zuzen **elkarzut** ezin dira bi aldetatik aldi berean ez elkartu eta ez elkarrengandik urrundu Jon Muñoz

2 (adizlagun gisa)

Han itsasoaren paraleloan zeuden kaleek zenbakiak zituzten, eta itsasoari **elkarzut** zeudenek, berriz, letrak. Jon Muñoz

Asteburu osoko egurrak ez zion errazten lurrarekiko angelua **elkarzut** mantentzea. Unai Iturriaga

---

elki ik **ilki**.

---

elkialdi ik **ilkialdi**.

---

elkibide ik **ilkibide**.

---

elkor **1** *izond* idorra, antzua.

Hemen, izan ere, landutako sororik apenas dagoen, eta lurra **elkorra** da, azalean bai behinik behin. Karlos Zabala

Poztu bitez basamortua eta lur **elkorra**, alai bedi eta loratu landa lehorra. Elizen arteko biblia

Eguna asko argitu dena, hori gogoan dute gaztelako lurralde **elkorretan** ere. Pello Zabala

Hegoaldeko alderdi **elkorretan**. Ander Irizar

Olibondo bakan batzuk sail **elkor** batean, jenderik ez. Joxe Austin Arrieta

Toki **elkor** eta harritsu bat zen, hatz batzuen gisa zeruaren lau bazterretarantz altxaturiko lau mendi biluzgorriren artean. Juan Garzia

Egidazu beste erregalo bat. Eman didazun lurra **elkorra** da; emazkidazu urtegiak ere. Elizen arteko biblia

Ivreako mendialdean jaioa zen, lur eder **elkor** horretan. Juan Garzia

Zeuen buru gaineko zerua brontzea bezain lehor eta oinazpiko lurra burdina bezain **elkor** bihurtuko dizkizue. Elizen arteko biblia

Bera da suge pozoitsu eta eskorpioiz beteriko basamortu handi eta ikaragarritik, ur-tantarik gabeko eremu **elkor** horretatik, eraman zaituztena. Elizen arteko biblia

Paraje ihar **elkor** haietan sarri ikusi ohi da artzaintzan dabilen artzainik, ardi-borro arre horietako xorta batekin. Pello Zabala

Haitz **elkor** batek, pobreak esanda, egarri zen pobretxoari edari ugari eman bazion, [...]. Askoren artean

Letrazko gerraren hondakin, orri idatziak izatera iritsi ez zirenak, lur eremu lehor eta **elkor** beraz-. Felipe Juaristi

Uhartea eremu soil-soila zen, hain biluzia, hain **elkorra** eguzki galda beroen azpian, ezen han bizi izatea are arriskutsuago eta lazgarriago bihurtu baitzen. Karlos Zabala

2 irud/hed

Erreformaren hazia astiki, arrunt astiki ari zen kontzen Amikuzeko lur **elkorrean**. Aingeru Epaltza

Ezkerreko diskurtsoa entzuten dudanean, **elkorra**, fosildua, topikoz betea, eskema zaharkitu batzuei itsatsia iruditzen zait sarritan. Xabier Mendiguren Elizegi

Axular eta enparauak salbuespenak izan omen ziren eta, sasoi honetan, salbuespen guztiak iparraldean zeuden; hegoaldea Esteban Garibai bezalako apologista **elkorren** menpekoa zen guztiz. Berria - Kultura

Ikuspegi ekonomizista batek, ordea, ezinbestekoa du gure lana **elkor**, galgarritzat jotzea. Anjel Lertxundi

Bai, **elkorra** zen Concha, eta oso itxia. Bernardo Atxaga

Ni ez bainaiz emakumea, baizik eta neskazar petral, erretxin, **elkorra**. Anton Garikano

Terride delakoa, frantximant **elkorra** Nola ibiltzen duen zaldiak behorra Hala kitatuko du hemen uzki-zorra. Aingeru Epaltza

Seguraski **elkor** hutsa izango da antigoalekoak garenokin, pentsatu zuen Bankes jaunak, bihotz-zabal izateko ahalegin guztiak eginez. Anton Garikano

Plá-ren *intolerància* horrek *conquistadore* eta *campeadore* kastillanoen desespiritu agor, idor, ihar eta **elkorra** itsasten dio hemengo eta nonahiko gogo hezeari. Iñaki Segurola

SNCF konpainiaren erantzun **elkorra** ikusita, kanpaina gogortuko dute. Berria - Euskal Herria

3 *ipar* gorra; sorra.

Solaskide **elkor**, itsu eta mutua Gure euskaldun txoriak haien mutilen eta esku-makilen atzaparretarik atera nahi ditugularik, duela berrogei urte bezala, Errepublikaren juje **elkor** eta mutu beren aitzinean aurkitzen garela. Herria

Itsuak eta **elkorrak** gure hautetsiak. Herria

Bakoitza berean dago eta azkenean **elkorren** arteko elkarrizketa da, batek erraiten duena besteak ez baitu ulertu nahi. Herria

SNCF horrek zendako egin behar du beraz hoinbestetaraino **elkorrarena**? Herria

Elkorrarena eginen ote du, orain arte bezala, nahi duena eginez eta ez sekulan kontutan hartuz bertzeen iritziak? Herria

Zurrumurru **elkor** hura, ahoko pipen sartu-atereak irregularki hautsia, gizonak hizketan pozik ari ziren adierazle. Anton Garikano

Elge biluzietarik datozkidan ardi marraka **elkor** bezain txukunak. Itxaro Borda

Ahots **elkor** eta mehatxagarria. Itxaro Borda

Amaren auhen **elkorrak** ontsa gogoan zeuzkan amatxik. Itxaro Borda

Ilunpearen isiltasunean, hasperen **elkorra** baizik ez zen entzuten eta zer herrestatu baten oihartzun uhargia. Itxaro Borda

Herots **elkorrak** aditu zituen ondoko gelatik. Itxaro Borda

Haizearen xuxurla, uhintxoen klaska hegietan eta batelaren motor azantz **elkorra**. Itxaro Borda

Ukabilka **elkorra** eman zion sabelean. Itxaro Borda

Hatsartze **elkor** eta kolpekatuek gizonaren kokotxa dilindan eta ahoa zabalik geratzera behartzen zuten. Itxaro Borda

-Ariketa orduan -tematzen zen haurra, 666 taldearen erritmo **elkorrek** gela betetzen zutela, apartamentua teilaturik oinarrietaraino inarrosiz. Itxaro Borda

4 (adizlagun gisa)

Elkor eta zurrun jarri nintzen, dentistaren aulkian banengo bezala. Tupustean, oso **elkor**, biharamunean eguraldi zakarra izango zela esan zuen. Jon Alonso

Gizona punpa eta jauzika ari zen, izuaren eraginez hatsa **elkor** hartuz; sugea aldiz, ezpalak ozen eta argi, uhinka zebilen, ezker eta eskuin. Itxaro Borda

Aitzinetik jakina zen alta larrepoteak uholdeka zetorrela, eta Afrika mendebalde guzia izurrite baten bezperan zagola! Bainan Amerika eta Europa **elkor** eta mutu egon dira. Herria

Bainan botere publikoak **elkor** gelditu dira. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
elkor eta (17); **elkor eta kolpekatua** (8); **elkor eta mutu** (3); **elkorrarena egiten** (9); **eta elkor** (9); **hatsartze elkor eta** (9); **lur elkorrean** (3); **lurra elkorra da** (4)

---

elkorka *adlag (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; ik* **elkor 3***) ***

Zakurra zaunka **elkorka**. Itxaro Borda

---

elkorkeria *iz* elkortasun gaitzesgarria.

Ez ote du **elkorkeriak** joa mundu hau? Elgar ezin jasanez bizi gira, itsuskeria izigarrienak obratzeraino. Herria

---

elkortasun *iz* idortasuna; gortasuna.

Departamenduko posta zuzendaritzaren **elkortasuna** salatu dute hautetsiek Bardozeko Herriko Etxean egin prentsaurreko batean. Herria

Elkortasun horretan badira salbuespen txiki batzuk. Berria - Kultura

Normala, esango genuke, den urtesasoia izanik, euri apurragoak botatzen dituelako barrualdean, eta eguzkiak bazterrak gehiago **elkortzen** eta penatzen dituelako. Pello Zabala

---

elkortu, elkor(tu), elkortzen **1** da/du *ad* elkor bihurtu. ik **idortu; antzutu**.

Pinudian lurzoruko hezetasun erlatiboak koska handiak nozitzen ditu, eta lurzoruari azala egiten zaio, **elkortu** egiten da eta urak maldan beherako isuria hartzen du. Pello Zabala

Izan ere, bizi berri baterat jaio nahi nuen eta jaio beharra nuen, zinez, zeren -ene kontzientziaren hertsiak errerik, **elkorturik** eta idorturik- ez bainengoen jada lehengo gogoan eta sinestean. Joan Mari Irigoien

2 *ipar* gortu, sor bihurtu.

Diote batzuk **elkortzen** ari dela gure Jakes Haundia, mihi gaixtoek derasatelarik beharri ziloetan ezarri dituzkeela "beharritxoak", erran nahi baita hobeki entzuteko eginak diren tresnañoak. Herria

Bainan hara, beharri barnetan zituen ile pustuken gatik ez zuen gehiago deusik aditzen, **elkorturik** zagon. Herria

Egunaz lo, gauaz besta, musikaren orde arrabotsa, [...] ez baitugu aitortu nahi, arte huntan, gu ere **elkortu** girela. Herria

Gerizatze lepoko poltsan lau disko-konpaktu, **elkortu** zen musikari aleman baten bost piano kontzertuak eta bederatzigarren sinfonia osorik, hain zuzen. Itxaro Borda

Elkortzen ninduen eta hondarrean barnean mugatua zein kontrolapean natxikan zarata. Itxaro Borda

Aljeriako gerlaz geroztik itxuraz **elkortua** zeukan senarra, aitzur eta gaztainondo puskekin teman abandonatu zuen. Itxaro Borda

---

elokuente *izond* elokuentzia duena edo adierazten duena.

Arana Goirik pasarte **elokuenteak** ditu horri buruz; Unamuno-k ez bezalako ondorio batzuekin. Joxe Azurmendi

---

elokuentzia **1** *iz* hitzaren bidez hunkitzeko edo konbentzitzeko artea; etorriaz eta eraginkorki hitz egiteko ahalmena.

Memiorekin, oihaneko tenplu narea utzi, eta **elokuentzia** ikastera joan zen Erromara. Juan Garzia

Lehenagotiko bertsogileen **elokuentzian** pausatzen da gehiago, bide berrietan abiatu barik. Berria - Kultura

Elokuentzian eta hitzetik-hortzerakotasunean trebatzen du, erreflexu-bizkortasunean eta ulertzeko eta zeure burua ulertarazteko gaitasunean.Idazle guztiei nire esker onik handiena erakusten diet [...]; horiei esker gu, iturritik ura edanez bezala eta gure asmoetarako egokituz, idazteko ahalmenak **elokuentziaz** eta zorroztasunez ugalduta aurkitzen gara, eta autore horietan fidatuz ausartzen gara sistema berriak prestatzera. Juan Garzia

Haietako bat Ernesto Alvarez zen, gizon beltzarana, begi-beltza eta bizarra zuritzen hasia zuena; **elokuentziaz** eta berotasun handiz hitz egin zuen mitin hartan; haur abandonatuez, eskaleez, emakume eroriez. Josu Zabaleta

Elokuentzia , eskolako lau hormetara kondenaturik, jendaurreko hitz jario huts bilakatu zen, arauak buruz ikasi beste xederik gabe. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Parrokoak hau eta beste esan dezake, deklama dezake, **elokuentziaren** edergailuek eta teologiaren argudioek ez dute liluratuko ezkerreko aulkien atzenean dagoen gizon argalen samalda. Koldo Izagirre

Eta gauza izango da, agian, bere **elokuentziaz** , hura erabat aldatzeko. Josu Zabaleta

Horrela bereizi egiten ditu jakituria eta **elokuentzia** ; hau asaldatzaile izateko jaio denarentzat beharrezkotzat jotzen du, eta ukatu egiten dio bestea, bakearen subirano absolutua dena. Esteban Antxustegi

Gaitasun bat aski da sedizioak bultzateko: jakituriarik gabeko **elokuentzia** . Esteban Antxustegi

Estatuaren subertsioan bat datoz ergelkeria eta **elokuentzia** , aspaldian (alegiak dioenez) Pelias, Tesaliako erregearen alabek, Medearekin batera aitaren kontra konspiratu zutenean bezala. Esteban Antxustegi

2 (hitz elkartuetan)

Emakume- **elokuentziaren** leherraldi honen zaztada bukaeran zetorren: [...]. Iñaki Mendiguren

---

elokutibo *iz* hitz egiteko edo zerbait adierazteko erari dagokiona.

Testu bakoitzaren diskurtso **elokutiboa** ideiak adierazten dituzten ikur multzo bat da, ikur horiek irudikatze hori, denotazioaren aldetik baino gehiago, konnotazioaren aldetik egiten duten arren. Isabel Arrigain

---

elongazio *iz* trakziopean dagoen zerbaiten luzatzea.

Han, gigantismo tematiz erasandako gastralgiko bat diagnostikatu nuen, trakeako **elongazioak** eta kapelako xingolaren erreumatismo deformatzaileak joa. Xabier Olarra

---

elor ik **elor**ri.

---

elorri *(orobat* ***elor*** *g.er.)* **1** *iz* zuhaixka mota arantzatsua.

Elorri bakoitzak bere aldia du: beltza azkarrago loratzen da, hostotxoak zabaldu baino lehen; alderantziz xuria, hostotxoak zabaldu ostean. Pello Zabala

Elorri eta sasiak alanbreak bezain gogorrak ziren, eta erpeen antzera heldu zieten. Agustin Otsoa

Txorien kokaleku den baratzeko **elorria** bezala. Elizen arteko biblia

Elorri baten hostotxoak. Anton Garikano

Bazekien berak non zen akazien eta **elorrien** loreek perfumatutako txoko bat. Koro Navarro

Elorriaren kimu txiki ñimiñoak, zuri-zuriak. Anton Garikano

Zergatik ote ditu horrenbeste arantza **elorriak** ? Joxean Agirre

Elorritik biltzen ote da mahatsik edo gardutik pikurik? Elizen arteko biblia

Santakrutz egunean, **elorria** bedeinkatu eta gordetzen omen zuten, eta **elorri** horrekin egin gurutzeak soroetan eta ateburuetan. Pello Zabala

Ikatzik onena pagoarena eta **elorriarena**. Pello Zabala

Garbiketa eta purifikazio hila zen, bai, **elorriarena**. Pello Zabala

Elorrizko bost zuzi zeramazkioten tenplura. Pello Zabala

Elorrizko koroaren markak. Imanol Zurutuza

Elorritik atera ta sasian sartu. Pello Zabala

Elorri eta belar tzar guziez garbitu zuten gunea eta lurrean zilo sakon bat egin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (izenondoekin)

Hiriko harresiaren ondora iritsita, **elorri** hostotsuen azpian eta kanabera artean ezkutatu ginen. Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Malkarrean gora eginik, **elorri**-arbola batek eskugaina zaurtu zidan. Juan Garzia

Elorri zuhaitz heldu eta adinekoak. Pello Zabala

Buruan **elorri**-arantzazko koroa eta kanabera eskuan ipini zizkioten. nekez pentsa liteke haitzartean **elorri**-sasiz erdi ezkutatuta dagoen ahoa zer nolako ikuskizunaren aitzin-ate den. Pello Zabala

Elorri adar loratua. Pello Zabala

Atean **elorri** adaxka batzuk paratu. Patziku Perurena

Aitak sarritan uxatu ohi zituen orubetik bere **elorri**-makilarekin. Irene Aldasoro

Agustin, joan azkar lorategira **elorri**-zibita batzuk ekartzera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Laharrek, asunek eta **elorri** abarrek jantziak eta zangoak lahardikatzen zizkioten. Itxaro Borda

Hesi ondotik pasatzerakoan, **elorri** zuztar bat moztu, hostoak kendu eta arantzak utzi ditu. Itziar Otegi

Bost zuzi zeramazkioten tenplura, **elorri**-lorez apainduta, baina beti maiatza baino lehen. Pello Zabala

Honek ez du **elorri**-sagarrik ematen, **elorri**-sagartxoak baitira baxokaran edo baxakan, gero patxaranetarako erabiliak. Pello Zabala

Hor gaindi nenbilela, beti iruditzen zitzaidan, handik edo hemendik, onddoak agertuko zitzaizkidala, eta bestalde, ardi ñapurren irudi, **elorri**-ondo eta sasien erditik pasatzeak, halako libertate baten itxura eskaintzen zidan. Daniel Landart

4 arantza.

Alde txar koxkor bat ere badu, noski, horrek guztiak, ez baita arrosarik **elorri** gaberik. Joxerra Garzia

Zonbat **elorri** eta arantze ez dago gutan ihaurri. Herria

5 nekea, estualdia.

Hotz hartan hobe zen oholak josten egotea eta ez lurra ebakitzen, baina horrek bazeukan bere **elorria** ere, geuk ekarri behar genituenez zerraldoetako biztanleak. Koldo Izagirre

6 ***elorri zuri*** *(orobat* ***elorri xuri, elorri txuri*** *eta* ***elorrizuri*** *g.er.)* elorri lore-zuria, fruitu-gorria eta zur-gogorra *(Crataegus monogyna).*

Etxeetako ate eta leihoetan zarbak ipintzekoa gorde dute, gurean sanjoan goizean **elorri zuri** eta lizarraren zarbekin bezalaxe. Pello Zabala

Irudika genezake egun gutxi batzuk igaro direla, eguzki errainuek argitzen dituzten **elorri zurien** loreek elur maluta distiratsuak iradokitzen dituztela. Imanol Zurutuza

Ez al zaizu ederra iruditzen hau dena, zuhaitzak, **elorri zuriak** eta nire urmaela. Imanol Zurutuza

Landare hesiek beste lursailetatik bereizten zuten; **elorri zurizko** pareta haiek, txit garaiak, zeruertza mugatzen zuten oihal berde batez. Karlos Zabala

Gure sanjoanak iristean, hemen **elorri txuri** zarba bat eta lizarrarena, atearen alde banatan ipintzen diren bezala, Txina aldean sahats arbaztatxoak lotzen omen ziren. Pello Zabala

Elorri txuri lore sortak, gizaseme askorentzat usain berezi emakumezkoen alubilokoa omen. Pello Zabala

Jondoni Joaneko belarrak ere (**elorri-xuri**, iratze, eguzki-lore, erramu, ogi landare eta bertze...) bildu dira gau hortan. Herria

7 ***elorri beltz*** basarana *(Prunus spinosa).*

Goizero ikusmira berriz, zuhaitz honek zenbat aurreratu duen, gerezi-loreak eta **elorri beltzarenak** zenbatzu zabaldu diren. Pello Zabala

Tira, **elorri beltza** pasa eta ajatua ere bai. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elorri beltza (3); **elorri berak lore** (3); **elorri eta** (9); **elorri mendi gelan** (3); **elorri xuri** (4); **elorri xuria** (5); **elorri zuriaren** (3); **eta elorri** (6)

---

elorridun *izond* arantzaduna.

Egunak alanbre **elorridunak** bezalako luzeak eta mingarriak ziren. Joseba Sarrionandia

Burdin-hari **elorridun** sasiz beteko dira. Iñigo Aranbarri

---

elorrio *iz*

Elorrio egin, **elorrio** ikusi, sofrikarioetan latzak ikustea adierazteko erabili ohi dira. Pello Zabala

---

elorriondo *(orobat* ***elorri-ondo*** *g.er.) iz* elorri arbola.

Bazituzten **elorriondo** sakratuak ere. Pello Zabala

Putzu ondoan itzulinguruak eman eta arropa-zaharren pusketak esekitzen zituzten **elorriondoaren** adarretatik bertako jaieradunek. Pello Zabala

Horixe dukezu, irakurle, artikulu bilduma honen irudirik osatuena: zain izerdidun **elorriondo** arantzatsua loretan. Patziku Perurena

Hor gaindi nenbilela, beti iruditzen zitzaidan, handik edo hemendik, onddoak agertuko zitzaizkidala, eta bestalde, ardi ñapurren irudi, **elorri-ondo** eta sasien erditik pasatzeak, halako libertate baten itxura eskaintzen zidan. Daniel Landart

---

elorritsu *izond* elorriz betea.

Denek batean osatzen dute antologia edo lorategi bat, dena **elorritsua**. Herria

---

elorrizuri ik **elorri 6**.

---

elortxuri ik **elorri 6**.

---

eltxafero ik **eltxaferu**.

---

eltxaferu *(orobat **eltxafero**) iz pl* su festak.

Hamabiak jotzearekin, abantxu toki guztietan bezala, **eltxaferuak**, muxuak, dantzak..., ekidingaitz den erritual hori. Jose Angel Irigaray

Txinparta eta **eltxaferu** aroa. Jose Angel Irigaray

Mementu berean aireportuko hall-en urteberriaren zain eta pantailan zuzenean "The Dome" gune erraldoiaren inaugurazio-jaia, Thames inguruko alimaleko **eltxaferu** besta, Greenwicheko kontzertua. Jose Angel Irigaray

Tongako musika eta dantza erakargarriak - **eltxaferorik** ez; beharrik! -barnatuegiak izanagatik ere, nostalgia apur batekin, mentura luzeari buru egin beharreko ixtantean idazten ari nauzu. Jose Angel Irigaray

---

eltxo *iz* **1** intsektu hegaldaria, hanka luze eta meheak dituena, pertsonei eta abereei ziztada mingarriak egiten dizkiena *(Culex pungens* etab.).

Hirugarren izurria: **eltxoak**.

Malco berehala hasi zen esaten "Euliak, inurriak, hiru kakarraldo, **eltxoak**, libelulak, matxinsalto bat, erleak". Unai Elorriaga

Ezerezetik sortuak, **eltxoak** talka bat, bidea lausotzen duen orban bat dira haizetakoan. Pello Lizarralde

Sakan honetan, **eltxoek** ziztatu egingo zaituzte. Koldo Biguri

Eltxoek, berriz, basa arratoien odola xurgatu eta gizon-emakumeetara hedatzen dute. Gotzon Garate

Malaria horrelako **eltxo** batek kutsatzen du, *anofele* deritzan eme batek. Gotzon Garate

Anofele **eltxoaren** kasuan gauza bera gertatzen da. Berria - Gaiak

Tigre **eltxoak** aurkitu dituzte Sant Cugat herrian. Berria - Gaiak

Eltxoak ezkutatu egiten dira lehendabiziko izotzarekin. Patxi Zubizarreta

Artean, gogoan zuten israeldarrek erbestealdian gertatua: nola lurrak, animalien ordez, **eltxoak** sortu zituen. Elizen arteko biblia

Zingiran, **eltxoen** hodei bat buru atzean zuen birundan. Felipe Juaristi

Enara batek hegaldi laburra egin zuen etxearen teilatupeko habia ezkututik **eltxoren** baten bila, gero berriro habiara itzultzeko. Anjel Lertxundi

Inguruetan zebiltzan eulitxo eta **eltxoak** harrapatzeko izugarrizko trebezia erakusten zuten. Gotzon Garate

Hiriko agintariek **eltxoak** fumigatzeko kanpaina bat abiatu dute aste honetan. Berria - Gaiak

Enara bakar batek urtero hamar milioi **eltxo** irensten omen ditu. Xabier Olarra

Gordeta neukan gertaera hartarako itxaropena eta desioa, amuarrainak **eltxoa** amesten duen beste. Hasier Etxeberria

Ez dakit beti **eltxo** bera zen ala **eltxo** diferenteak ziren. Unai Elorriaga

Aurpegia okertu zuen, begian **eltxo** bat sartu balitzaio bezala. Anton Garikano

Gerta liteke mendi handi baten neurriko gizabanako bat izatea, buru askotakoa, airean igerian; edo gerta liteke **eltxo** baten neurriko elefantea existitzea, bai eta elefante baten neurriko **eltxoa** ere; hori guztia -diote- arrazoimenak onargarri du. Xabier Kintana

Hori ustekabea izan da managerrarentzat, burmuina **eltxo** batena bezalaxekoa baitu. Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Koramora **eltxo** handi, luze eta nagi bat da; batzuetan, etxeetan sartu, edozein hormatan jarri, eta hortxe geratzen da, egonean eta bera bakarrik. Jose Morales

Bada Silari eta Alburno-ko basoen inguruan, lizarrak ostutsu diran tokian, **eltxo** egalari bat erromatarrek asilus esaten diotena. Patziku Perurena

Gerta liteke mendi handi baten neurriko gizabanako bat izatea, buru askotakoa, airean igerian; edo gerta liteke **eltxo** baten neurriko elefantea existitzea, bai eta elefante baten neurriko **eltxoa** ere; hori guztia -diote- arrazoimenak onargarri du.Bonbillen argiak **eltxo** madarikatuak erakartzen ditik. Xabier Kintana

Txilardien gainean **eltxo** gosetien hodeiak dantzan ari ziren biraka. Agustin Otsoa

Bere ziztada ohiko **eltxoena** baino mingarriagoa da, baina ez da arriskutsua. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste herrialderen batean ere aurkitu dute **eltxo** mota hori ezta? Berria - Gaiak

Zur bernizatuzko janaritegi eroso bat egin du, egiazko **eltxo** sarez hornitua, gainera. Josu Zabaleta

Lurreko hautsa **eltxo**-saldo bihurtu zen Egipto osoan. Jose Antonio Mujika

Ai Etiopiako ibaiez bestalde dagoen lurraldea, **eltxo**-burrunbadaz beteriko lurraldea! Elizen arteko biblia

Egiptoko hauts guztia gizaki eta abereentzat gogaikarri zen **eltxo**-izurri bihurtu zen. Elizen arteko biblia

Eguzkiaren begian, artean ere, elizan xaguxarrak beren asma ezinezko joan-etorrietan **eltxo** harrapatzen ibiltzen dira. Gotzon Garate

Batzuetan posta-kartutxoak erabili ohi ditu **eltxo** ehizan. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eltxo bat (8); **eltxo batek** (3); **eltxo baten** (5); **eltxo eta** (3); **eltxo mota** (4); **eltxoak bezala** (3); **eltxoek zabaltzen** (5); **eltxoek zabaltzen** (5); **eltxoek zabaltzen dute** (3); **eltxoek zabaltzen dute** (3); **eta eltxo** (4); **eta eltxoak** (7); **hautsa eltxo** (3)

---

eltxotegi *iz* eltxoak dauden ontzia.

Baso-guardak besoarekin jo zuen behetik gora eta haritzaren adarra zirpildu zuen superpuestatik irtendako berun-**eltxotegiak**. Joxemari Urteaga

---

eltzari *iz* eltzekoa.

Eltzekoa izan da guretzat, *puskalehor* delakoaren kontrakoa: gure aitaren guztizko **eltzaria**, alegia. Patziku Perurena

---

eltzartu, eltzar(tu), eltzartzen **1** da/du *ad* zaharrez mintzatuz, haurren modukoa-edo bihurtu. ik **txotxindu**.

Ez zuen gogorik berriro agureen jolas itsusi haietan aritzeko, eta, gainera, Egutxi ez zegoen tokia bisitatzen zuten beste agureak bezain **eltzartuta**. Ibon Uribarri

Guztiz **eltzartuta** zegoen agure batek ahaztu egin nahiko zituen neskato gazte baten larruazalaren eztitan bizi zen garai haiek. Ibon Uribarri

2 (era burutu izenondo gisa)

Agure **eltzartu** baten heriotza gauza higuingarria da. Ibon Uribarri

-Horrela eskutik hartuta gidatu behar dituzun edo eutsi behar diezun agure **eltzartuak** ere etortzen al dira, hanka edo esku bat perlesiak jota dutenak? -galdetu zion Egutxi

agureak emakumeari. Ibon Uribarri

Susmoa zuen bera baino agure **eltzartuagoak** alaitasun eta goibeltasun handiagoaz bertaratzen zirela. Ibon Uribarri

Ezin zuen neurtu zenbateko mina eman ziezaiekeen senitartekoei, baina lotan hiltzea, adibidez, gau hartako bi neskato gazteen artean, ez al zen soin **eltzartu** batek lor zezakeen azken asebetea? Ibon Uribarri

---

eltzaur 1 *iz ipar* intxaurra.

Nola Melibar eta Gazurateko erresumetarik ehun ontzi baino gehiago piperrez, kanelaz, Indietako **eltzaurrez** eta bertze anitz gauza miresgarriz, Mangi, Aden eta Alexandria aldeetara urtero ateratzen diren. Aurelia Arkotxa

Han "mazia" daritzaten **eltzaurraren** kuskua, eta zedoarra. Aurelia Arkotxa

Gaztainaren iduriko **eltzaur** barnehuts bat ematen dik. Aurelia Arkotxa

Toki horretan, gingenbra, piperra, Indietako **eltzaur** anitz eta kotoina atxematen da. Aurelia Arkotxa

2 *eltzaur muskada* intxaur muskatua.

Nola, aldi berean, Lebantetik ontziak urrezko eta zetazko oihalez, urre, zilar, gariofili hitze, **eltzaur** muskada, eta bertze anitz espeziaz beteak datozen. Aurelia Arkotxa

---

eltze *iz* 1 janariak egosteko-eta erabiltzen den ontzia, altua eta bi eskuleku dituena. ik**lapiko; tupina; kazola**.

hantxe aurkitzen ziren, hormetatik behera esekita, **eltze**, tupin, padera, talo-burni, burruntzi, burruntzali, tanbolin ta kriseiluak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ekonomika gainean **eltzea** lurruna dariola, kako batean txapa irekitzeko gantxoa, paretan Arantzazuko egutegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Zartaginean, bost xerrak egosten; **eltzean**, berriz, tipulatxak urtzen. Jon Muñoz

Zertxobait baretu orduko, **eltzean** gal-gal-gal omen zeuzkan babarrunak. Pako Aristi

Ondoan, gopor bat bete kafe eta, aitzinean, **eltze** bat bor-bor su gainean. Aingeru Epaltza

Dionisos ordu bata t'erdietan heldu zen etxera, **eltzea** azken pil-piletan zegoenean justu. Unai Iturriaga

Mahaiaren erdian **eltzea** jartzen zuten, potajez betea jeneralean, eta inguruan etxeko guztiak kutxara bat eskuan zutela, bertatik jaten. Xabier Etxabe

Gosetearen garaian, pobreen artean, txongoak osatzen zuen haien **eltzeetan** falta zen koipea. Pako Aristi

Urtzen ari zen txerri gantzari azken begirada bat eman eta bi **eltzeei** estalkia kendu zien. Karlos Zabala

Segi beharko du **eltzeak** sutan pixka batean. Arantxa Iturbe

Hiru **eltzeen** borbor etengabe haren erdian. Karlos Zabala

Auguste, txerri gantzaren arduraduna, **eltzeak** zaintzen ari zen, izerdi patsetan. Karlos Zabala

Maiz, sorbaldaren atzean sentitzen zuen, **eltzeen** hondoari begira, hurbil-hurbil, haren bular sendoaz bizkarra ukitzen ziola. Karlos Zabala

Platera atxiki zuelarik, urdai gantza mantso-mantso labainarazi zuen **eltzearen** barrura, koilara muturrarekin desitsatsirik. Karlos Zabala

Quenuk, bitartean, **eltzeko** nahasketari gogor eragin eta nola loditzen zen ikusten zuen. Karlos Zabala

ik eltzeko.

Ordu batean uzten zioten lanari hiru anaiek, artean ezkongabeak, baserrira bazkaltzera igotzeko, ia egunero babarrunak eta puskaren bat; postrerik ez; kafea bai, **eltzekoa**. Berria - Kultura

Nire herriaren haragia jaten dute, larrua kentzen diote, eta hezurrak apurtzen; **eltzerako** haragia bezala puskatzen dute, lapikorako okela bezala. Elizen arteko biblia

Poliki-poliki ari zen sutan berotzen **eltze** kafez betea. Jon Muñoz

Sukaldera joan zen, non **eltze** bat babarrun kozinatzen ari baitzen ama. Joan Mari Irigoien

Eltze bete uretan oilo-saldazko bi kubotxo botaz hasi zen dena. Jon Muñoz

Gau hartan, hamaikak aldera, Quenuk, bi **eltze** txerri gantz abian jarri ondoren, odolkiaz arduratu behar izan zuen. Karlos Zabala

Kondairak dio aitonak dirua **eltze** batean sartu zuela. Pello Lizarralde

Haren ondoren, bizar txikiko errabino zahar bat, Alemaniatik iheslari etorria, **eltze** bat ematen zuen kapela beltz bat jantzita, alemanez jardun zen. Koro Navarro

Gure etxeko zientzilaria **eltze** orotako burruntzalia balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Nire bizitzan estraineko aldiz pentsatu nuen ez zegoela niretzat inongo babesik, bakar-bakarrik atera beharko nituela babak **eltzetik**. Fernando Rey

Ez zezatela begirunerik espero alferrek ez eta babak **eltzetik** ateratzea besteen esku uzten zutenek ere. Urtzi Urrutikoetxea

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ipini sutan **eltze** handia eta egin eltzekaria profeta-taldearentzat. Elizen arteko biblia

Ezkerraldean, burdinurtuzko sutegi handi bat zegoen, hiru zuloz hornitua, non hiru **eltze** mozkotek ikatz kedarrez belzturiko ipurdiak sartzen baitzituzten. Karlos Zabala

Azido sulfurikoa eta sosa urturik **eltze** esmaltatu batean, bisulfatoa lortzen genuen. Juan Garzia

Bai baitzirudien norbaitek **eltze** mailatu bat jo zuela makila batez. Jose Morales

-Ez, ez zen atseginezko tokia -jarraitu zuen, Pauline txikiaz ahazturik, begiak **eltze** lurrintsuan galduak-. Karlos Zabala

Plater eta **eltze** erabiliak harraskan zeuden, eta janari hondakinak mahai gainean. Aingeru Epaltza

Barren-barrenean zabortegi bat zegoen, herdoildutako ohe-burdina ugerrak eta galdara apurtuak eta **eltze** ipurdirik gabeak biltzen zituena. Mirentxu Larrañaga

Urdai gizena ezezik, zerri odolkiak, saiheskiak, hezurkiak, azarekin nahasita, neguko **eltzekorik** gutiziatuenak genituen oraintsu arte. Patziku Perurena

Babarrunak egosten beheko suan laratzetik zintzilik jarritako lurrezko **eltzean**. Pako Aristi

Aluminiozko **eltzearen** alboa astindu zuen. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Zer beste **eltze**-konpontzaile? -esan zuen Hynes jaunak. Patxi Zubizarreta

Eltze–konpontzaile zikina! Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Presio-**eltzea** erori zaidak eguerdian, fregatzen hasi naizenean. Iñaki Iñurrieta

Lepokoa eta gabardina aulki batera bota ondoren txapa elektriko batean kafe-**eltzea** berotzen jarri zuen. Iñaki Zabaleta

Irin-**eltzea** ez zen hustu, ezta agortu ere olio-pitxerra,. Jose Antonio Mujika

Hobe genukeen Jaunak Egipton hilarazi bagintu, haragi-**eltze** inguruan eseri eta ase arte jaten genuenean. Elizen arteko biblia

Txongoari lizta bat lotu eta babarrun edo lenteja **eltzean** sartzen zuen aitonak. Pako Aristi

5 irud/hed

Frankismoaren azken urteetan, gure auzoa ideologien **eltze** eta egosleku bihurtu zen. Ravaillac delakoaren sastagaia Joana Albretekoaren semearen bularreraino nork gidatu duen, erran-merranen **eltzea** da hiria. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

babak eltzetik (10); **beste eltze** (3); **eltze artean** (3); **eltze bat** (11); **eltze batean** (6); **eltze eta** (11); **eltze handi** (3); **eltze haundian** (3); **eltze konpontzaile** (3); **eltzea erori** (3); **eltzea sutan** (4); **eltzea urrez** (3); **eltzera bota** (4); **eltzetik babak** (4); **eta eltze** (5); **eta eltzeak** (3); **kafe eltzea** (4); **presio eltzea** (3); **urruneko eltzea** (3); **urruneko eltzea urrez** (3)

eltzegila ik **eltzegile**.

eltzegile *(orobat **eltzegila** g.er.) iz* ogibidez eltzeak egiten dituen eskulangilea. ik **buztinlari**.

Eltzegilea buztin biguna lantzen saiatzen da eta eguneroko premietarako ontziak moldeatzen ditu. Elizen arteko biblia

Lokatza bezala zapalduko ditu gobernariak, **eltzegileak** buztina zapaltzen duen bezala. Elizen arteko biblia

Entzuna ere badut, **eltzegilearen** antzekoa dela izamena eta eltze eder bat egin dezakeenak, berdin ditzake bi, hiru, eta ehun ere. Patxi Ezkiaga

Labeak probatzen ditu **eltzegilearen** ontziak. Elizen arteko biblia

Jeremias **eltzegilearen** lantegian. Elizen arteko biblia

Aste undar huntan, larunbat igandez, iraganen da **eltzegileen** merkatua. Herria

Publikoak bozkatzen ahalko du ere **eltzegile** bakotxak eginen duen obra ederrenarentzat. Herria

Elkarren artean erabaki ondoren, **"Eltzegilearen** soroa" erosi zuten diru harekin, kanpotarren hilerri izan zedin. Elizen arteko biblia

eltzegintza *iz* eltzeak egiteko lanbide eta jarduera. ik **buztingintza**.

Aurten ere, bi egunez, helduden asteburu hortan hain xuxen, poteria edo **eltzegintza** erakusketa bat gaitza izanen da Bastidan. Herria

Duela hamar urte muntatu zen Bastidan, herri hortako turismo-bulegoa sustatzaile, beste elkarte asko partzuer, lehen poteria edo **eltzegintza** feria. Herria

Larunbatean eta igandean, Bastidan, **eltzegintza** merkatua. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eltzegintza feria** (4); **poteria edo eltzegintza** (3)

eltzegorri *iz* **eltzeitsua.

Sosik ez omen dute, **eltzegorria** dena hustua! Herria

Gastuak ere badirela, jendearen laguntza eskatzen dute lhauteri elkartea kudeatzen dutenek eta lekuka **eltzegorri** batzu paratuak dituzte bakoitxak bere bihotz ona erakustea gatik. Herria

eltzeitsu *iz* buztinezko eltze itxia, txanponak sartzeko irekidura bat duena eta dirua aurrezteko erabiltzen dena. ik **itsulapiko**.

Bere etxearen sal-erositik eskuetaratu diruak, baita **eltzeitsu** batean ezkutaturik zituen bizitza osoko irabaziak ere, poltsa batean gorde genituenak **eltzeitsua** hautsi ondoren. Joan Mari Irigoien

Txerri-itxurako **eltzeitsu** txiki bat eros nezakeen. Joan Mari Irigoien

Baina ama, semeen banku pobreak baino alaba inozenteen **eltzeitsuak** gehiago kezkatzen zuen. Patziku Perurena

Logelan bere **eltzeitsuko** diru guzia oge gainean zabaltzen du: "dolar bat eta hameka zentimo." Hauk balioski sakelan altxaturik, etxetik urruntzen da farmaziako bidea hartuz. Herria

Egin edukitzen zuen barra-izkinan, edozein mobidatako kartelak eransteko arazorik ez, jestoretako **eltzeitsua** jartzeko proposatu ziotenean ere konforme. Xabier Mendiguren Elizegi

Zenbatetan ez ote zen ibili, bada, umetan, Domundeko **eltzeitsuarekin** hara eta hona dirua biltzen. Joan Mari Irigoien

eltzekada *iz* eltze betearen edukia.

Ama eskaileretan behera dator, **eltzekada** patata dakarrela. Behin ere ez zinan atera **eltzekada** bat jele baino gehiago. Josu Zabaleta

Eltzekada bat ur bota zioten Joanesi esnarazteko. Felipe Juaristi

Etxeko gauzarik oinarrizkoenak ordenatu eta garbitzen dizkio, sutan jartzen du **eltzekada** zopa handi bat, beti berdina, babarrun txuria eta ortuariak, hainbat egunetarako badu. Jon Alonso

Orduan, etxe guztietan goizean jartzen zen egosten babarrun edo lenteja **eltzekada** bat, eguerdian eta gauean jateko. Pako Aristi

Orduan Jakobek ogia eta dilista- **eltzekada** eman zion anaiari. Jose Antonio Mujika

eltzekari *iz* eltzean, barazkiekin-eta, prestatzen den janaria. ik **lapikoko**.

Ipini sutan eltze handia eta egin **eltzekaria** profeta-taldearentzat. Elizen arteko biblia

Eltzekarirako barazki sorta lotuak ere saltzen zituen: lau porru, hiru azenario, txiribi bat, bi arbi, bi apio hosto. Karlos Zabala

Behin batean, Jakob **eltzekaria** egosten ari zela, oihanetik itzuli zen Esau, oso nekatua. Jose Antonio Mujika

Aterpean sartu orduko **eltzekariaren** usain onak eta profeta itxurako gizon irribarre bizardunak desarmatu naute. Piarres Aintziart

Eltzekari, ahateki, gasna eta beste 15 e. Herria

Jabea dirudienak prestatutako **eltzekaria** jan dugu, bost lagunek batera ontzi handi beretik zuzen zerbitzatuz, tresna bakarra atzamarrak zirela. Jon Arretxe

Izan ere, hobeak egongo dira buñueloak kartzela honetako **eltzekari** zakarrak baino. Bernardo Atxaga

Eltzekari pozoitua. Elizen arteko biblia

Hemen, bederenik, materia jatorra saltzen dizute: legatza beti da legatz, urraburua beti da urraburu, betiko **eltzekaria** benetako osagarriz dago egina. Berria - Kultura

-Hor aurrean lurrina dariola dagoen azpil handi horrek **eltzekari** lodia izan behar du noski. Patxi Ezkiaga

Irrisa egosiaz osatu **eltzekari** mota berezi bat badago ere: 'Kongi'. Ramuntxo Etxeberri

Pasta **eltzekaria** eta xerriki 'Dim Sum'-ak besterik ez zituzten hartu. Ramuntxo Etxeberri

eltzeki *iz* eltzekoa.

Koilarako jangaiak (zopak, **eltzekiak**, barazkiak) ia erabat desagertu dira-eta, sardexkaz hartu beharrekoak hatzez atzituko ditugu. Edorta Agirre

eltzeko 1 *iz* eltzean, barazkiekin-eta, prestatzen den janaria. ik **eltzekari; lapikoko**.

Herenegun azenarioak eta ilarrak egin zizkion [...] gaur indaba pintoak prestatu behar dizkio, eta biharko **eltzeko** bat geratu diren azenarioekin. Josu Zabaleta

Zerbait prestatzen ari da sukaldaria, **eltzeko** baten usainak sudurra gozatu dio. Aingeru Epaltza

Badakite, mila hitzek baino gehiago balio duela **eltzeko** beroak Madrilen, elurra mara-mara ari duenean. Berria - Euskal Herria

Orduantxe, **eltzekoa** egosi eta ontzi batean ogi-apurrak prestatu berriak zituen, eta sorora zihoan igitariei eramatera. Elizen arteko biblia

Ostatu txukuna da: txukruta eta **eltzekoa** ematen dute gau osoan. Monika Etxebarria

Zopa bikain bat, **eltzekoa** gantzez eta garbantzuz baina azafrairik eta piperrik gabe, legatz xerra batzuk oliotan frijituak, oilasko errea. Koldo Izagirre

Sua handitu zuen Ruche jaunak, **eltzekoak** irakiten jarrai zezan, eta azafraia bota zuen. Jon Muñoz

Erantzun zidan, hasieran italieraz eta gero alemanez, tripaki-zopa zela egun hartako **eltzekoa**. Anjel Lertxundi

Eltzeko, bezperako babarruna eta aza nahastuta atera zuen; guk geuk zerbitzeko. Inazio Mujika Iraola

Urdai gizena ezezik, zerri odolkiak, saiheskiak, hezurkiak, azarekin nahasita, neguko **eltzekorik** gutiziatuenak genituen oraintsu arte; eta geroztik, barazki berriak Ameriketatik sartu ahalean, aza babernak, aza patatak, eta antzekoak ere bai. Patziku Perurena

2 (hitz elkartuetan)

Orain, joan zaitez Pepponek apaizetxean utzitako erbi-**eltzeko** goxoa jatera, zurea da eta. Koldo Biguri

3 irud/hed

Zenbait komunikabidetan entzundako harribitxiez, gezurrez eta hankasartzeez osaturiko **eltzeko** goxoa. Berria - Kultura

4 ***eltzeko domeka***

Eguerdian barau egin eta gero, Santa Ana erruki-etxera joan ginen familia osoa, etxean bazkaldu ez genituen barazkiak eta txerriki gatzatua, eta baita dozena bat arrautza ere, otar estalkidun batean hartuta: hiriko behartsuenei laguntzeko hilean behingo **eltzeko** domekaren usadio hori zen aitak Hitlerren erregimenari barkatzen zion neurri bakarrenetako bat. Anjel Lertxundi

Jende dezente zebilen sartu-irtenean, nor bere otarrarekin, nor sarezko zakutoarekin, **eltzeko** domekarekikoak egitera etorrita. Anjel Lertxundi

Badakizu **eltzeko** domeketako diruen arduradun egin dutela aurten. Anjel Lertxundi

---

eltzeño *iz adkor* eltze txikia.

Elektrikarik gabe, fitsik ez zenukete ikusiko, **eltzeño** baten edukia bor-bor duen suagatik ez balitz. Xabier Montoia

---

eltzepe *iz* eltzearen azpialdea.

Izan ere, **eltzepeko** zotzaren txinpart-hotsa bezalakoa ergelaren irria, huskeria hutsa. Elizen arteko biblia

---

eltzetegi *iz* eltze lantegi edo biltegia.

Josette Dacosta oztibartar artistak bere obren erakusketa zenbait ere idekirik ditu: Goicoechea **eltzetegian** Ortzaizen eta Pirineotako hotelean Donibane Garazin, agorrilaren 14 a arte. Herria

Gure herrian ere beren gisako sustengua ekarri diote euskarari ikastolako eta San Mixel eskolako haurrek, korrika eginez Goikoetxea **eltzetegitik** ikastolaren inguruetaraino. Herria

---

eltzetxo *iz* eltzeitsua.

Soineko ertzak hartzen hasia da Santxika; zortzi marabedi irabazten ditu eguneko garbi-garbi eta **eltzetxo** batean gordetzen ditu ezkontzen denerako. Patxi Ezkiaga

Zaku-karrerarekin eta **eltzetxoak** apurtzeko jokoan ere dibertitu zen. Koldo Biguri

---

eluntzi *izond* hitzontzia.

Erraiten dute beti emazteak **eluntziak** direla. Menane Oxandabaratz

Gizonak badira emazteak bezain **eluntziak**! Menane Oxandabaratz

---

elur *(2.653 agerraldi, 181 liburu eta 350 artikulutan; ETCn 18.134 agerraldi; orobat **edur** g.er.)* **1** *iz* hodeietatik maluta zurietan erortzen den ur izoztua.

Patriciaren oin arrastoak zaldi batenak bezain handiak ziren **elur** gero eta lodiagoan. Koro Navarro

Bere menditar pauso luzeaz zebilen, **elur** harria bezain gogorra bere makilaren burdinazko muturraz joz. Josu Zabaleta

Bizpahiru ordu geroago, ordea, **elurraren** erasoa gaiztotu egin zen, eta zaldiak ezinean hasi ziren. Bernardo Atxaga

Po ibaiaren adar nagusia, Dora Baltea, bete-betea dator, sasoi honetan gertatzen baita glaziarretako **elurren** urtze nagusia. Anjel Lertxundi

-Poliki ibili; ez egin astoarena **elurretan**. Koro Navarro

Mendira jotzen genuen **elurretan** ibiltzera, edo bestela, berriro ere, txori harrapaketari ekiten genion zepoak bekorotzetan gordez. Bernardo Atxaga

Oinek irrist egiten zuten, batzuetan **elurretan** hondoratzen ziren, eta eskuek nahi gabe heltzen zioten lagunari. Jose Morales

Asteasu inguru honetan, denbora asko ez dela, ez zen harritzekoa ehiztari edo nekazari bakarti bat **elurretan** hiltzea. Bernardo Atxaga

Pirinioetako herrixka batean Dabidek eta biok **elurretan** igaro genituen aste santuko opor zoragarriak etorri zaizkit gogora. Patxi Zubizarreta

Poema xume bat **elurretan** idatzita. Berria - Kultura

Horrela esplikatzen da **elurretako** gizon izugarriaren pertsonaia, yeti delakoa esan nahi dut. Bernardo Atxaga

Pentsatzekoa zen gamma izpiekin ere **elurretako** Yetiarekin gertatzen zen gauza beretsua pasatuko zela. Harkaitz Cano

Mutikoa, **elurrezko** bola bat eskuetan, begira geratu zitzaion nola kulunkatzen zen. Koro Navarro

-Nahiago dut kanpoan geratu eta **elurrezko** panpin bat egin Arnold Matthews bezalakoa. Koro Navarro

Haren jantzia **elurra** bezain zuria zen. Elizen arteko biblia

Elurra heriotza bezain zuria da. Karlos Linazasoro

Haren buruko ilea zuria zen, artilea eta **elurra** bezalakoa. Elizen arteko biblia

Elurra, zuria delarik, beltza da. Iñaki Segurola

Elurtea bihar arte luzatzekotan goiz osoa izango dute **elurra** kentzeko langileek, arratsaldeko bostak arte. Berria - Kirola

Gipuzkoan, esaterako, **elurra** kentzeko 41 makina, iaz baino 9 gehiago, eta 17 gatz silo daude. Berria - Harian

Goizean itxi behar izan zuten Loiti, **elurra** bidetik kentzeko. Berria - Euskal Herria

Ibaiertz **elurrez** estali hartara seinalatu zuen, nondik baitzetorren txistu-hots luze sarkor bat. Irene Aldasoro

Metro erdiko **elurra** ere egin du. Berria - Harian

Berriki ikusi dugu bost zentimetro **elurrek** zer nahasmen eragin duten Biriatutik Poitierseraino. Berria - Euskal Herria

2 (aditzekin)

Elurra hasi zuen Patricia, Edith eta hirurak parkerantz abiatu orduko. Koro Navarro

Elurra hasi zuen gogotik, benetako erauntsia, haize zakarrarekin. Bernardo Atxaga

Tupustean **elurra** hasten du eta Valenzuela harrituta dago, pilota lurrean utzi du eta zerura begira dago. Harkaitz Cano

Apirilean **elurra** urtzen denean hasten da, eta ez da geratzen azaroan berriro **elurra** hasten duen arte. Oskar Arana

Gero **elurra** hasiko da, emaro, etenik gabe. Joseba Sarrionandia

Orduan bezala, **elurra** ari zuen eta diligentzia etxe atarian geldituta zegoen. Bernardo Atxaga

Gaur goizean hasi da guztia, eta arratsalderako **elurra** mara-mara ari zuen. Anjel Lertxundi

Mara-mara esaten da, baina han zarra-zarra ari zuen **elurra**, atertu gabe, aspertu gabe, eta botatakoa ez zen urtzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Uste baino **elur** gutxiago bota zuen Nafarroan, baina izotz bihurtutako **elurrak** arazoak eragin zituen. Berria - Harian

Elurra isil ari du kanpoan, teilatu gainetan mutu, zuk irun eta amets egiten duzu. Patziku Perurena

Gogotik ari du **elurra**. Harkaitz Cano

Elurra ari zuen gogor; **elurrak** estaltzen zigun ikusmena, **elurrak** ahultzen kemena, **elurrak** ekartzen guregana hildakoen egonezina, hildakoen ezina, hildakoen isiltasuna. Felipe Juaristi

Aldian behin gora begiratzen zuten, zeru aldera, kargatua eta zuria baitzegoen, eta **elurra** zekarren. Josu Zabaleta

Eguna lainotsu zegoen eta tarteka **elurra** bota zigun. Alberto Ladron Arana

Esan nizun **elurra** bota behar zuela eta hobe zenuela Tabrizen geratzea. Jon Arretxe

'Kanpoan **elurra** dela, horixe da gertatzen dena!' dio amak. 'Horregatik ez da ailegatu karteroa'. Joseba Sarrionandia

Elurra denean, ezagutzen ez genituen gauzak aurkitzen ditugu geure barruan, eta hori da ume honi gertatzen zaiona. Bernardo Atxaga

Elurrak atertu bazuen ere, ipar-haize zorrotza zebilen, eta arin-arin abiatu ginen, lagunek aspaldi behar zuten-eta billar-aretoan. Anjel Lertxundi

Abenduaren hogeita lauan ez zuen sekula **elurrik** egiten. Harkaitz Cano

Elur asko egin zuen. Xabier Olarra

Hotz handia zegoen, eta Burgostik urruti oraindik, gogotik egin zigun **elurra**. Rafa Egiguren

Elurra izoztu egin zen, eta arbola batzuk lurrera erori ziren, ahulduta. Pako Aristi

Lehenengo aldian **elurra** goizean goizik heldu zen, eta malutak poliki-poliki ezarri ziren lur gainean, tximeletak balira bezala. Bernardo Atxaga

Berriro hasten ziren lerroz lerro, orpoz orpo, oinez oin, **elurrak** ezkutatutako bidetik zehar burumakur. Felipe Juaristi

Elurrak estaltzen ditu Arnegi inguruko mendi tontorrak. Berria - Euskal Herria

Elurrak erabat estaltzen zuen autoa. Bernardo Atxaga

Teilatu batetik **elurra** eta izotza erori eta zortzi auto harrapatu ditu Iruñean. Berria - Euskal Herria

Negua da, hotz egiten du eta **elurrak** bazter guztiak zuritu ditu. Berria - Kirola

Elurrak zurituak zituen ordurako ingurune guztiak. Anjel Lertxundi

Elurra iragarri dute gaurko 600 metrotik gora, eta alerta egoera ere ezarri dute. Berria - Euskal Herria

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Erosketak egiten balebil bezala mugitzen zen **elur** lodiaren gainean. Koro Navarro

Elur mardula hasi zuen bat-batean, mara-mara eta oparo, erauntsi etengabean. Anjel Lertxundi

Elur etengabeak, ordea, neskak markatu ahala estaltzen zituen hanka-arrastoak. Anjel Lertxundi

Oin bat, nekeagatik harri karga astuna bezain pisua zirudiena, **elur** bigun eta hezean sartuz gero, madarikazioka, arnas estuka, izerdi botaka hasten ziren. Felipe Juaristi

Gero eta gehiago erabiltzen da **elur** artifiziala eta horrek asko areagotu du ur kontsumoa, WWFk ondorioztatu duenez. Berria - Gaiak

Bazen amiantoa bazter guztietan, **elur** errauskara baten modura. Juan Garzia

Zaldien ferrek ozen zapaltzen zuten lurra, eta batzuetan labain egiten zuten **elur** bustian. Jose Morales

ik beherago 7. Askoren artean

Haize etengabe horrek **elur** lehorra arrastatuko du, izotz kristal txikiak itzelezko indarrez jaurtiko balitu lez. Joseba Sarrionandia

Dena **elur**, eta **elur** hormatua. Marzel Etxehandi

Pitzadura bat **elur** izoztuan. Bernardo Atxaga

Teilatuan **elur** ugari zegoen eta haren pisuak eragin zuen hondamendia. Berria - Mundua

Zorigaitzez, eroritako **elurra** ez da **elur** hutsa izan oraingoan. Berria - Kultura

Itsasertzeko **elurra** berehala urtzen da. Joseba Sarrionandia

Huna berriz orain apirileko **elurra** mendi gain horietan. Herria

Asteburuko **elurrak** erabat estali zuen Osasunaren futbol zelaia. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neguan, berriz, ehunka **elur** maluta, udako gauetako tximeletekin antz handia dutenak. Kaioak **elur** malutak irudituko zaizkizu, islen forma ilunen kontra. Bernardo Atxaga

- **Elur** haizea da neguko biolina, ezta? Felipe Juaristi

Gauerdian haizea hegosartaldetik izugarrizko indarrarekin hasiko da jotzen, eta **elur** ekaitza ekarriko du. Joseba Sarrionandia

Elur eta izotz ekaitzari aurre egiteko Babes Zibileko Plana indar barik utzi du Eusko Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Kotxezainek hotsik egin gabe eramaten zituzten bikoteak **elur**-jasen pean. Xabier Olarra

Elur erortze batek eraginik izan ote zen ala erorikoak ote zuen eragin **elur** erortzea, ez da behin ere jakinen. Berria - Kultura

Elur-jausia Cornion mendigunean izan zen. Berria - Euskal Herria

Elur maila500-600 metrora jaitsiko da gaur. Berria - Euskal Herria

Elur-erauntsia islagailuen argitan, **elur**-hautsa eta bisuts-zirimola pistaren gainean, eta ni urduri. Joxe Austin Arrieta

Neguaren amaiera zen, eta, **elur**-erauntsien eta hotz gogorreko egun hitsen erdian, udaberri hurbilak aitzindari bidaltzen zuen noizean behin egun eguzkitsu bat, oskarbia eta epela. Jose Morales

Zulaketak egin dituzten lekuko lurra **elur** geruza finez osatua dago, eta geruza fin horiek aztertuz, klima aldaketaren inguruko «informazio garrantzitsua» lortu dute. Berria - Gaiak

Pentsatu zuen gainean zuen **elur**-kapa manta epel bat zela, eta mantarekin burua estaltzen saiatu zen. Julen Gabiria

Bide ertzetan ere metro erdiko **elur** horma zegoen pilatuta. Berria - Kirola

Elur-baltsa zegoen lurrean; eta soilik teilatuetan, ibaiertzeko karelean eta hesietan **elur**-arrastoak eta **elur**-zerrendak. Irene Aldasoro

Molde berezi batez interesatu dira mendiko eta **elur** gunetako ofizioei: aro aztertzaile, **elur** pisten prestatzaile, ixtripuak direnean sokorritzaile. Herria

Estatuan saltzen da urtean 180 000 **elur** taula, 115 000 lotura eta 104 000 oinetako pare. Herria

Ustinov berak adierazi du Jukosek estatuarekin duen zorra **«elur** pilota baten modukoa» dela; hasiera ikusi bai, baina amaiera ikusten ez dena. Berria - Ekonomia

Mutikoa zutik zegoen Patriciaren ondoan, **elur** bolez beterik sakela. Koro Navarro

Elur eskukada bat hartu eta esku ahurrean jarri dut. Harkaitz Cano

Izan al zara **elur**-biltegietan? Ikusi al dituzu kazkabar-gordailuak? Elizen arteko biblia

Luz-Ardiden **elur** tokirat abian da gazte andana bat helduden ilabete huntan. Herria

Portillon **elur** lerragunean barna, 3 kilometrako tunel bat eta 28 bihurgune lazgarrien ondotik, agertu zauku Euskal Herria iduriko bazter berdetsu ederra. Herria

Elur-basamortu horretatik sortzen den fantasma da. Bernardo Atxaga

Ez dira jabetzen berek Natura deitzen duten hori bezain naturalak direla uholdeak (lehengoak bederen), **elur**-etenak, zurrunbiloak eta erortzeko amildegiak. Iñaki Segurola

Nahiz eta kilometro batera geunden, **elur** eztandak sortutako zipriztinak gureganaino iritsi ziren. Bernardo Atxaga

Beste **elur**-mendi bat bisutsa sortzen hasi zen, amiltzeko zorian zegoelako seinale. Bernardo Atxaga

4 000 metretan pasatu dugu Xileko muga, **elur** lumen azpian. Herria

Han bizi ziren eskimalak modus vivendi-rik gabe geratu ziren, eta irlako gobernuak den-denak Gronedalera eramatea erabaki zuen, eta familia bakoitzari etxe bat, **elur**-motoa eta 100.000 korona ematea. Bernardo Atxaga

Harria hain lodi zuen egina nun **elur** haizagailuak atera behar izan baitituzte bidearen garbitzeko, bereziki Augsbour ondoko autobide batean. Herria

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Brandano ezagutu dut bere ontzi txikiaren brankan, bizar **elur**-kolore luze batez, tunika zuri batez, begirada aratz batez. Anjel Lertxundi

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Adin batekoak izan gira itzuli eder baten egiten (egun bat) Atarratzen gaindi, bortuz bortu, ikusiz neguko **elur** jostagailu lekuak, ostatu haundi batzu ere. Herria

7 irud/hed

Burua jaso du amak: haurrak, amonaren nekeak erasanda edo, lo hartu du maindireen arteko **elur** berotan. Pako Aristi

Mara-mara esaten da, baina han zarra-zarra ari zuen **elurra**, atertu gabe, aspertu gabe, eta botatakoa ez zen urtzen. Xabier Mendiguren Elizegi

8 *elur-bisuts*

Zuk ez ninduzun luzaroan hauteman, nahiz eta gauero zure kalean egoten nintzen, izan **elur-bisutsa** edo izan Vienan dabilen haize gorri zorrotza. Eduardo Matauko

Elur-bisuts handia izango zela ohartarazi zitzaien arren, mendira ateratzea erabaki zuten. Berria - Mundua

Elur bisuts zakar amaiezinak. Karlos Zabala

Beraz, aspaldi handian ez bezalako **elur-bisutsa** izan dute Mendebaldean. Mirentxu Larrañaga

Soldadu bat ikusi zuten, bi eskuak aurrera, elurpeko liluramendu hartan, **elur bisutsaren** astinaldiak eraginiko eldarnio hartan, maite zuen emakumea besartean zuela. Felipe Juaristi

Elurra ari zuen, elkarrekin Tuilerietan eseri ginenean, **elur-bisutsa**, zerua urdin egon arren. Joxe Austin Arrieta

9 *elur busti* (*orobat* ***elurbusti***) zuritzen ez duen elurra.

Elur bustia deitzen diogu inguru hauetan: euriarekin nahasian eta artean ere maluta egin gabe, trinkotu gabe datorrenean. Pello Zabala

Elur bustia ari zuen. Harkaitz Cano

Behe lainoaz gain, **elur-bustia** ere egin zuen tarteka. Berria - Euskal Herria

Oso eguraldi txarra egiten zuen egun hartan, hotza eta nahastua, gehientsuenetan **elur bustikoak** ziren zaparradekin. Bernardo Atxaga

Gau beltza zen, eta noiztenka **elur busti** erauntsi bat izanik ere, ez zuen argi beharrik nora bideratu jakiteko. Elena Touyarou

10 *elur gune* (*orobat* ***elurgune***) elurra dagoen gunea.

Maxsea sozietatea itsas gida berri bat pikoan emaiten laguntzeko 60 000 euro, Eguzkia euskal bixkotxaren elkarteari 25 000 euro, eta Bidarteko enpresa bat **elur gunetako** meteotegi berria sortzen laguntzeko 21 500 euro. Herria

Mendi eta **elur guneetako** ofizioei interesatu dira: elur pisten prestatzaile, ixtripuetan sokorritzaile, aro aztertzaile, elauso haundietaz babesle. Herria

Ixtanteko, **elur gunetan** zehar igorik, Autzaren xoramena, 1306 metretan. Herria

11 *elur hontz* (*Bubo scandiacus*)

Harryk kaiola handi bat zeraman **elur-hontz** eder batekin, burua hego azpian sartuta seko lo zegoena. Iñaki Mendiguren

Elur-hontzak mokoaz klik egin zion eta Harryren besora joan zen hegan. Iñaki Mendiguren

Haietako bat, **elur-hontz** handi emea, bere Hedwig zen. Iñaki Mendiguren

12 *elur jasa*

Zortzi egun oso-oso iraun zuen horrek, eta **elur-jasa** atertu egin zuten. Jarraitzen dute hotz gorriak, haize zitalak eta **elur jasek**. Josu Zabaleta

Etengabe eta trinko zirauen **elur-jasak** eta zeharo zuri zegoen ontzigaina. Anjel Lertxundi

Elur asko egin zuen, eta kotxezainek hotsik egin gabe eramaten zituzten bikoteak **elur-jasen** pean. Xabier Olarra

13 *elur jauzi* (*orobat* ***elurjauzi*** *g.er.*) malkarretako elurra higitzea edo amiltzea.

Funtsezkoena elurra eta bere egoera ezagutzea da, **elur jauziak** izateko zein arrisku dagoen ala ez jakiteko. Berria - Euskal Herria

Pertsona horiei **elur jauziak** izateko arriskua dagoela ohartarazten badiete ez dira pistatik ateratzen. Berria - Euskal Herria

Pistetatik kanpo egiten denean ohikoak dira istripuak, batez ere **elur jauzien** ondorioz. Berria - Euskal Herria

Elur jauziak harrapatu eta itoak zituen bi gazteak, alta mendizale trebeak. Herria

Hura eta **elur jauzi** bat geraraztea, gauza bera ziren ordea! Koro Navarro

14 *elur orein* (*orobat* ***elurrorein***) karibua.

Glaziarraren oinean, halaber, **elur oreinek** beren kumeak hazteko baliatzen duten gune babestua dago. Berria - Gaiak

Hauen artean daude ipar Amerikako **elur-oreina**, idi musketaduna, Seychelle Uharteetako azeri hegalaria eta lemur marroia. Berria - Gaiak

Lehenengo parean, txakurrek, **elur-oreinek**, zaldiek eta aziendek betetzen dute osmanliarren giza esklabo-kasten lekua. Iñaki Mendiguren

Bihotza izozten sentitu dinat, nire jantziak **elur-orein** larruzkoak izan arren. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldiz elur (7); **baina elur** (7); **bat elur** (9); **bat elur izoztuan** (4); **beste elur** (4); **da elur** (8); **dira elur** (4); **du elur** (5); **duen elur** (4); **edo elur** (7)

elur artean (5); **elur asko** (9); **elur azpian** (7); **elur bola** (12); **elur bustia** (8); **elur edo** (6); **elur ek** (7); **elur ekaitz** (11); **elur ekaitza** (12); **elur ekaitzak** (13); **elur ekaitzaren** (10); **elur ekaitzaren ondorioz** (4); **elur en** (8); **elur erauntsi** (7); **elur erauntsia** (5); **elur erauntsiak** (5); **elur erori** (4); **elur eta** (29); **elur eta izotz** (9); **elur eta laino** (4); **elur gainean** (14); **elur gaineko** (9); **elur gaineko hegoa** (6); **elur gehiago** (9); **elur geruza** (16); **elur hautsa** (5); **elur izoztua** (4); **elur izoztuan** (4); **elur maila** (13); **elur maluta** (19); **elur malutak** (27); **elur maluten** (4); **elur melur** (4); **elur mota** (4); **elur pila** (6); **elur pilota** (6); **elur pilotak** (5); **elur pixka** (6); **elur pixka bat** (4); **elur xuri** (4); **elur zuri** (4); **elur zuria** (8)

elurrak elur (4); **ere elur** (8); **eta elur** (74); **eta elur gehiago** (4); **ez elur** (5); **gainean elur** (4); **gero eta elur** (4); **lau aldiz elur** (7); **pitzadura bat elur** (4); **zen elur** (6); **zentimetroko elur** (6); **zentimetroko elur geruza** (4); **ziren elur** (4); **zituen elur** (4); **zuen elur** (8)

ari zuen elurra (5); **baina elurra** (8); **da elurra** (11); **den elurra** (4); **du elurra** (11); **edo elurra** (8); **eguraldia elurra** (5)

bigarren emanaldian (4); **biharko emanaldian** (4); **dira emanaldian** (4); **diren emanaldietan** (4); **duen emanaldian** (6); **duen emanaldiarekin** (4); **dute emanaldian** (4); **egingo duen emanaldian** (4); **emanaldian zehar** (14); **emanaldiarekin hasiko** (11); **emanaldiarekin hasiko da** (9); **emanaldiarekin jarriko** (4); **emanaldiarekin jarriko da** (4); **emanaldiaren bigarren** (5); **emanaldiaren hasieran** (4); **emanaldiaren ondoren** (8); **emanaldiaren ostean** (5); **emanaldiaz gain** (5); **emanaldien ondoren** (4); **emanaldietako bat** (4); **emanaldietan ere** (5); **emanaldiez gain** (10); **emanaldirako sarrerak** (5); **emanaldiren bat** (4); **filmaren emanaldiarekin** (8); **gaurko emanaldian** (8); **lehen emanaldian** (7); **lehenengo emanaldian** (4); **taldearen emanaldiarekin** (5); **taldeen emanaldiarekin** (4); **zuzeneko emanaldietan** (18); **zuzeneko emanaldietan ere** (4)

---

emanalditxo *iz adkor* emanaldi laburra.

Lehen **emanalditxoa** esatariarekin elkarrizketa laburrean joango zen, eta iragarpenaren puntta bat errepikatuko zuten gero ia ordu erdi oro. Pello Zabala

---

emanarazi, emanaraz, emanarazten du *ad* ematera behartu.

Silvestre izeneko jaun batek ikusi zuen San Frantzisko behartsuei dirua eskubetean ematen eta **emanarazten** ari zela. Askoren artean

Asiriako erregearentzat zilar kopuru hori bildu ahal izateko, Israelgo aberats guztiei zilarrezko berrogeita hamarna txanpon **emanarazi** zien, zergatzat. Elizen arteko biblia

Bere lurrak jendez hutsarazi, eta su **emanarazi** ziean tresnei. Juan Garzia

Buelta **emanarazi** diogu orduan Maurice Barrèsi eta galtzak erantzi dizkiogu. Monika Etxebarria

Printzeak aulki bat eskatu zuen eta meza **emanarazi** zion bere kapilauari. Koldo Izagirre

Kolpeak salto **emanarazi** zion, eta burua jiratu zuen eskailera zurien atzetik zetozen xuxurletara. Anton Garikano

Eta bila joanen zitzaizkiela gaztigaturik, oro jakinaraziko niela berebat, sekretua atxikiko zutela hitz **emanarazirik**. Jon Muñoz

Irakeko diktadoreari amore **emanarazi** beharrez, beren populuen iritzia enganatuz, gerla-bideari fidatu zaizkion Ameriketako eta Europako zenbait estatuburu. Piarres Xarriton

Printzeak aulki bat eskatu zuen eta meza **emanarazi** zion bere kapilauari. Koldo Izagirre

Hiru pastoral badütü **emanarazirik**: Harizpe (1991, Muskildi), Atharratze jauregian (1997, Atharratze), Madalena de Jaureguiberry (2000, Eskiula). Herria

Dualismo kartesiarra bazterturik [...] izpirituaren eta naturaren harmonia eta paralelotasuna proklamatzen da, hots, bion monismo organiko-ebolutiboa, zientziak oraindik eman ezin ziena desirari eta irudimenari **emanaraziz**. Joxe Azurmendi

---

emanazio *iz* gorputz batek gai lurrunkor bat jariatzea.

Hilobi komuna libratzera beharturik aurkitzen zirenean, hezurrentzat baino balio ez zuen labean hezurrak eta zerbait gehiago erretzen zuten, eta pertsona zuhurra nintzela agerian zegoelako, konfidentzialki esan zidan bazirudiela **emanazioek** kalte egiten zietela langileei, zehazki zein osagarriren eraginez ziur ez bazekiten ere. Ramon Saizarbitoria

---

emandegi

1 ***irrati emandegi*** irrati igorgailua.

Badugu herriz herri, eta sektorez sektore, osatzen joan den hedabide txiki eta ertainen sare zabala: bost herri telebista, 30 irrati **emandegi**, 60 herri aldizkari, 63 aldizkari espezializatu, 60 berripaper eta 34 eskoletako argitalpen. Txema Ramirez de la Piscina

AEBetan 2.000 kazeta inguru daude, 10.000tik gora astekari, beste horrenbeste irrati-**emandegi** eta 2.000tik gora telebista kate. Txema Ramirez de la Piscina

Telebista-kate gehienak, irrati-**emandegi** garrantzitsuenak eta iritzi-sortzailerik zorrotzenak bere alde izan arren, PPk ez du garaipen politikorik lortu EAEn behintzat. Txema Ramirez de la Piscina

---

emangarri **1** *iz* eman daitekekena.

Izan ere, hemen arrazoimenak ez du inoiz behar ilararen osotasun absolutua, zeren honek halakoa inoiz ez baitu aurresuposatzen baldintza gisa eta emana den zerbait gisa (*datum*), baizik baldintzatua den zerbait gisa soilik behar du, **emangarria** besterik ez den (*dabile*) eta amaigabeki gaineratzen den zerbait. Ibon Uribarri

2 (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa) adierazten dena ematen duena.

Haurretan ere, ezagutzen nituen jende guztietan, neroni nintzen errukarriena eta pena-**emangarriena**, eta sentipen hori ez zait areagotu baizik urteak metatu ahalean. Aingeru Epaltza

Zure hozkailu zaharren egoera pena-**emangarria** salatzeko aukera eman nahi nizun. Aingeru Epaltza

Haietan printzipalena nor eta Luis Borboikoa zen, Condéko printzea eta Antonioren anaia bera; ez, ordea, hura bezain aldabera eta lotsa **emangarria**. Aingeru Epaltza

Gutun luzeak idazten zizkidan bere estilo dotore eta irri-**emangarrian**. Fernando Rey

Aintzineko trebe eta jotzale horrekin, egin duela gibelean beraz partida bat geroko esperantza **emangarria**. Herria

Alegiazko zentzuan, etorkizun bikain, asmo ezkutu eta egintza etsipen-**emangarriko** edozein andre. Xabier Olarra

Emakume bat bezala ari zen negarrez, niretako ahalke **emangarri**. Aingeru Epaltza

-Esateko modukoa da, nahiz eta enbarazo-**emangarri** samarra izan. Xabier Olarra

Hartu naute ni preso dohakabe hauek beraienaren aldean bizimodu pribilegiatuan bizi naizen txorimalo harrika **emangarri** gisa. Koldo Izagirre

---

emanka *adlag (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa)* ematen.

Bertze batzu belaunikaturik lurrari musu **emanka** ari ziren. Michel Oronoz

Ondoren berriro jarri zen etzaulkian eroso, arnasestuka eta haize **emanka** itsas munstro baten antzera. Anton Garikano

Baina bera amagan pentsatzen ari zen denbora guztian, antzematen zuen aita pentsamendu hari segika zebilela, itzal **emanka**, dardar eta kordoka eginaraziz. Anton Garikano

---

emankada *iz*

Tira, kontua da egunero bi, hiru eta, batzuetan, lau gizon eramaten zituela geltokian zegoen bagoi abandonatu batera, eta tren zaharren usain hartan eskertu egiten zituela langile izerditu haien **emankadak**... Paddy Rekalde

---

emanki *adlag* ematen duenez.

Lama horiek, alaba, argi gehiago **emanki** bero baino, bi-biez itzaliak beren agintzan berean, hura egiten ari deneantxe, ez ditun sutzat hartu behar. Juan Garzia

emankizun *(**379** agerraldi, **18** liburu eta **202** artikulutan; ETCn **3.062** agerraldi; orobat **emonkizun** g.er.)* **1** *iz* emanaldia.

Horrelaxe deitzen da herrian ostiralerako iragarri duten **emankizuna**, edo ikuskizuna, edo dena delako hori. Pako Aristi

"Ez da musik" **emankizuna** entzuten duzue. Menane Oxandabaratz

Ilusionista baten **emankizuna** zirudien. Juan Kruz Igerabide

M6 gateak zabaltzen duen **emankizunaz** guk ere zerbait erran dezagun, hain aipatua denez gero komunikabide guzietan. Herria

Aldiz, hurbileko telebixta, Baionakoak segitzen du bere **emankizunen** zabaltzen. Herria

Sexologo batek "Gure Irratian" gazteentzat **emankizun** bat egiten duenetik, Euskal Herriko betiko balore sakratuak desagertzen ari dira. Ramuntxo Etxeberri

Hasi, zirko ibiltari bateko **emankizuna** hasten den bezala hasi zen. Ander Irizar

Emankizuna 407 garrena zen, 28 urtez iraun duen literatura eta kulturaz arduratu den **emankizuna**. Herria

Aktore hau ezaguna zen bereziki Euskal Telebistako *Goenkale* **emankizunean** Joxe Mari pertsonaia jokatzen zuenetik. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Prima donna: Hau da joan den larunbatean zabaldu den **emankizun** berria, animatzaileak direlarik Sophie Davant eta Patrick Sebastien. Herria

Ilustralari sonoroa **emankizun** kulturalen arduradun eta berriemaile bilakatu zen, eta 1981ean Hego Amerikarako emanaldien zuzendari izendatu zuten. Berria - Mundua

Uste dut lehenengoz telebista frantseseko **emankizun** literario batean ikusi nuela. Berria - Kultura

Erran nion egun batez, Angel Ainciburu luzaidar adiskideari, Euskal Irratietan zabaltzen dituen **emankizun** interesgarriek idaztea eta argitaraztea merezi luketela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zinez **emankizun** hunkigarria. Herria

Nik bezala adin puska bat duenak ez du ahantzia "Cinq colonnes à la Une" **emankizun** famatua. Herria

Zure amaren iduriko, **emankizun** alu hori nire 'sex-appeal' delakoarendako kaltegarria izan zen. Ramuntxo Etxeberri

Sam Shepard, Tennessee Williams eta Davi Mameten lanak taularatuko dira hurrengo **emankizunetan**. Berria - Kultura

Ezin konta ahala azafata atera ziren platora, eta aparteko fineziadun **emankizuna** eskaini ziguten guztioi, pikardia handikoa. Karlos Linazasoro

Gaur emango zaio FIPA Ikus-entzunezko saioen nazioarteko jaialdiari hasiera *The Deal Stephen Frears*en fikziozko **emankizunarekin**. Berria - Kultura

Ez gara Mireille Dumasen telebistako **emankizun** batean hemen, ez diguzu arauz zure bizia xeheki kontatuko. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetako bigarren osagai gisa)

Historiaren joanarekin, danborrada, onarpen handiagoa izateaz gainera, talde **emankizun** baten erreferentzia bihurtu da, donostiar guztiak inspiratzen, hunkitzen eta liluratzen dituena. Askoren artean

Oroitzen zara izigarrizko nahaste-borrasteak jartzen zituela zure gaztaroko telebista **emankizunetan**. Ramuntxo Etxeberri

Egun horietako prentsa artikulu, irrati **emankizun** eta telebista erreportaiak bildu ditu, Euskal Herriari buruz egiten den ohiturazko tratamendua aztertzeko. Berria - Euskal Herria

Prentsako orriak, telebistako kirol **emankizunak** eta irratietako uhinak txirrindularien arrakastaz lepo dabiltza. Berria - Kirola

Espetxe barruan teatro **emankizunak** gertatu eta antzeztea, berak eta beste kartzela-kide batzuk aktore lanetan jardunez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Musika, antzerki eta hainbat arte **emankizunekin** batera bertsolaritzak jendea kalera ateratzen du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Telebistazalea zen eta ETBko bertsolaritza **emankizunak** baizik ez zituen jasaiten ahal. Ramuntxo Etxeberri

1944an, Unión Radio zena Sociedad Española de Radiodifusión (SER) katea bilakatu zenean, bederatzi eliz **emankizun** zabaldu zituen. Pello Zabala

4 *izond* eman beharrekoa.

Beroan bero, **emankizun**, artikulu andana bat izan zen. Michel Oronoz

5 ***irrati emankizun*** irrati emanaldia. ik **irratsaio**.

Patrick Cassanek egun horietako prentsa artikulu, **irrati emankizun** eta telebista erreportaiak bildu ditu. Berria - Euskal Herria

Integrazio Batzordeak sei orenetako **irrati emankizun** berezia antolatua zuen iragan larunbatean, "Irrat' 6" izenekoa. Herria

Azti-Begia elkarteak **irrati emankizuna** satelitez ere hedatuko du. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da emankizun (4); **da musik emankizuna** (10); **da musik emankizuna** (10); **da musik emankizunean** (4); **den emankizun** (3); **den emankizuna** (3); **den emankizuna** (3); **deritzan emankizuna** (4); **deritzan emankizuna** (4); **du emankizun** (5); **duen emankizun** (5); **duen emankizuna** (4); **duen emankizuna** (4); **dut emankizun** (3); **egin emankizun** (4); **egin emankizun bati** (4); **emankizun bat** (12); **emankizun baten** (3); **emankizun bati** (4); **emankizun bati buruz** (4); **emankizun batzu** (3); **emankizun berezi** (5); **emankizun berezi bat** (3); **emankizun eta** (3); **emankizun hau** (13); **emankizun hori** (8); **emankizun horiek** (3); **emankizun horrek** (5); **emankizun horri** (3); **emankizun horri buruz** (3); **emankizun interesgarria** (4); **emankizun luze** (3); **emankizuna eginen** (3); **emankizuna eginen** (3); **emankizuna eta** (3); **emankizuna eta** (3); **en emankizuna** (3); **en emankizuna** (3); **en emankizunean** (4); **eta emankizun** (3); **holako emankizun** (3); **holako emankizuna** (3); **holako emankizuna** (3); **irrati emankizun** (3); **lehen emankizuna** (4); **lehen emankizuna** (4); **musik emankizuna** (10); **musik emankizuna** (10)

---

emankor *(**521** agerraldi, **102** liburu eta **216** artikulutan; ETCn **5.534** agerraldi; orobat **emonkor** g.er.)* **1** *izond* dagokionetik asko ematen duena; etekin handia ateratzen zaiona.

Oso eskualde epel eta **emankorra** da, baina mendiz, glaziarrez eta aintziraz inguratua. Xabier Olarra

Ozeano Barearen ertzeko lurrak **emankor** eta garrantzitsuak ziren Perun, baina ez atlantiar itsasertzekoak Mexikon. Iñaki Mendiguren

Soro **emankorrek** urtean hiru aldiz eztia bezain uzta gozoak ematen dituztelarik. Iñaki Mendiguren

Lurraren ontasunak tiraturik, arlo **emankorrak** luberritu eta zelaiak belardi bihurtu. Xabier Amuriza

Badu baita giza jendearentzat nondik atera uzta gardenak eta zuhaitz **emankorrak**. Xabier Amuriza

Emankorra izan da gainera beti lizarra: zarba ugaria, azkarra eta baliosoa hazten du urte pare batean. Pello Zabala

Hiru litro bakarrik fronte beroak, eta hogeita bi, fronte hotz **emankorrak**. Pello Zabala

Aditzena ere eremu **emankorra** da hitz luzeak bilatzeko ahalegin honetan. Iñaki Arranz

Ideia praktikoa beti da **emankorra** eta benetako ekintzei dagokienez ezinbestean beharrezkoa. Ibon Uribarri

Duintasuna eta autoritatea ematen dio zentsura-karguaren bitartez, zeinak [...] bere landualdi ausarta eta **emankorra** zorion orokorraren helburu nagusitik urruntzea saihesten duen. Ibon Uribarri

Alexandro-aurreko helenismoaren kultur konkista **emankorrenak** etruskoen eta helenikoak ez ziren beste herri batzuen artean egin ziren Italian mendebaldeko kostan zehar. Iñaki Mendiguren

Galdetzen diot, halaber, lehia hori **emankorra** izan ote den, ala, jarrera absurdoen aurkako gehienak bezala, antzua. Bernardo Atxaga

Burdinarena ez dela munduan dagoen negozio bakarra, are gutiago **emankorrena**. Joan Mari Irigoien

Gure ustez, kanpoko hizkuntza fenomenoen ikerketa oso **emankorra** da. Isabel Arrigain

Nire aburuz Aristotelesen ekarpenik **emankorrena**. Joxerra Garzia

Hiztegi hau, haatik, tresna **emankorra** da. Xabier Olarra

Zibilizazioen arteko topaketen emaitza **emankor** bakarrak bake-lanak izan dira. Iñaki Mendiguren

Euskara oso **emankorra** da hitz elkartuetan, eta horrexegatik berorregatik, harrobi aberatsa da etorkizuneko hitz berriak sortzeko. Koldo Zuazo

Bokal-harmonia [...] hizkuntza eransleetan dela **emankorren**, hizkuntza horietan erlatiboki asko direlako erroari gehi dakizkiokeen atzizkiak. Lourdes Oñederra

Enuntziatuen arloa ez da hondartza geldoen multzo bat, une **emankorrek** eteten dutena; burutik burura aktiboa den eremua da. Xabier Arregi

Nire ustez, oso urte **emankorrak** izan ziren haiek. Ana Urkiza

Hiru pasio nagusitara errenditu zela bere mundualdi (1867-1905) labur bezain **emankorrean**. Juan Garzia

Oso bizitza lantsu eta **emankorra** izan zuen artearen munduan. Xabier Olarra

Ahalmen **emankor** honek ez du bere emankortasuna agortzen lehen izakiak sortzearekin. Imanol Unzurrunzaga

Heretikoa, ironikoa, **emankorra**... Bai, pertsona bitxia izan zen Keynes. Iñaki Heras

Ilgora **Emankorreko** arabiar herriak. Iñaki Mendiguren

2 (adizlagun gisa)

Izpiritua beti berdin zorrotz dauka eta bihotza **emankor**. Herria

Baratzeari so zegoen Fermin, joan den neguan hasi baitzen orain **emankor** ageri den lurra prestatzen. Berria - Euskal Herria

Egun hauetan irakurri astekari batek aipatzen zuen nola INRA (Institut national de la recherche agronomique) delakoak zioen, ahoan bilorik gabe, produktibismo famatu hori arras ez **emankor** agertzen zela. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain emankorra (5); **bide emankor** (3); **bilera emankorra** (3); **biziki emankorra** (3); **da emankorra** (5); **da emankorrena** (3); **elkarrizketa emankorra** (3); **emankor bat** (9); **emankor baten** (6); **emankor bihurtu** (7); **emankor den** (3); **emankor egin** (3); **emankor egingo** (4); **emankor egingo zaituzte** (3); **emankor eta** (8); **emankor horren** (4); **emankor izan** (3); **emankorra da** (19); **emankorra da hitz** (3); **emankorra eta** (12); **emankorra gertatu** (3); **emankorra izan** (48); **emankorra izan da** (11); **emankorra izan dela** (4); **emankorra izan zen** (12); **emankorra izango** (4); **emankorra izateko** (4); **emankorra izaten** (3); **emankorra zen** (4); **emankorragoa da** (4); **emankorragoa dela** (3); **emankorrak dira** (3); **emankorrak izan** (12); **emankorrak izan dira** (4); **emankorrena da** (3); **emankorrena izan** (3); **eta emankor** (8); **eta emankorra** (26); **eta emankorra da** (4); **eta emankorra izan** (3); **eta emankorragoa** (4); **eta emankorragoak** (3); **eta emankorrak** (6); **eta emankorrena** (3); **ez da emankorra** (3); **hain emankor** (3); **hain emankorra** (5); **harrobi emankorra** (3); **idazle emankor** (4); **idazle emankorra** (5); **lur emankor** (3); **lur emankorra** (10); **lur emankorra eta** (3); **lur emankorrak** (6); **oso emankorra** (16); **oso emankorra izan** (10); **oso emankorrak** (9); **oso emankorrak izan** (5); **urrats emankorrak** (4)

---

emankortasun **1** *iz* emankorra denaren nolakotsauna.

Produktibitatea zer da? Ekoizpenaren **emankortasunaren** neurria; hau da, ekoizpen jarduera jakin batean ekoizten den kopuruaren eta kopuru hori ekoizteko behar izan diren baliabideen arteko erlazioa. Iñaki Heras

Nekazaritza praktika intentsiboek lurraren **emankortasuna** ahultzen dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egoerak definituko du bertutea, adoreak arriskua definitzen duen legez, edo aberastasunak **emankortasuna**. Askoren artean

Nik erantzungo diot lurraren **emankortasunak** gidatu dituela gizakiak. Imanol Unzurrunzaga

Unibertsitateari ez zaio ematen behar duen beste diru, hori gauza jakina da, eta horrek kalte egiten dio unibertsitatearen kalitate eta **emankortasunari**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikaste prozesuaren **emankortasuna**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Freuden obraren **emankortasuna** handia da benetan. Berria - Harian

Ziur egon gaitezke ordezkatzearen **emankortasunaz**, gure datuetan honakook baditugu: [...]. Lourdes Oñederra

Orobat mirestekoa da agorraren **emankortasuna**. Askoren artean

Bilakabide fonologikoen **emankortasuna** handiago edo txikiago izan ohi da bilakagai den hotsaren edo hots-bilkuraren tasun-konbinaketaren arabera. Lourdes Oñederra

Ahalmen emankor honek ez du bere **emankortasuna** agortzen lehen izakiak sortzearekin. Imanol Unzurrunzaga

Gerraren jainkoa, eta landare, animalia eta soroen **emankortasunaren** jainkoa ere. Pello Salaburu

Bere seme-alaba guztiak hiltzen ikusi eta gero, utzi egin ziola mundu honen galkortasunean esperantza izateari; eta, haien galeraren ordain gisara, maitasunaren eta **emankortasunaren** erresuman babestu zela, lagun hurkoen bihotzetan nor izatea lortuz hartara. Patxi Zubizarreta

Horrekin loturik dagoen hastapenaren espirituarekin bat eginik, kasu honetan ere gertaeraren beraren lur hain zapaldu eta **emankortasunik** gabeko horretatik, gertaera inguratzen zuten gorabehereetara desbideratuko dut bilaketa. Koro Navarro

Ezaugarri honi dagokionez morfemen artean egon daitezkeen aldeak hobeto azaltzen dira, dirudienez, **emankortasuna**, konbinatze-askatasuna, eta ordezkatze-taldearen neurria bezalako kontzeptu gramatikalen bitartez, esanahiari dagokion ustezko ezaugarri baten bitartez baino. Itziar Laka

Gaiztoa bere **emankortasunean** agor. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

«Vargas Llosa **emankortasun** izugarriko idazle handia da», Sepulvedaren ustez, «pasio handiak bezala, kontrako jarrera sutsuak ere pizten dituena». Berria - Kultura

Emankortasun nabarmena nabari zitzaien, antza, halako gaixo askori: autobiografiak edo egunkari amaigabeak idaztea, marrazketa obsesiboa (joera grafikokoen artean), eta halako sentipen bat "argitua" izatearena, "misio" batera deitua izatearena eta "patu"arena. Xabier Olarra

Biztanleriaren gehitzea zela-eta, jaisten ari ziren kapitalaren mozkinak, biztanleen ugaltzearen ondorioz **emankortasun** gutxiagoko lurrak landu behar baitziren. Koro Navarro

Biztanleriaren hazkundearen presioa dela medio, hasiak ziren jada oso **emankortasun** eskaseko lursailak lantzen. Iñaki Heras

Hortik ikus daiteke Frantziako harrobiaren etengabeko **emankortasuna**. Berria - Kirola

Zeren orduan ez baita irabazten delako grazia ez eta loria, baina Jainkoak bere neurrigabeko **emankortasunean** ematen baititu mundu honetako beste sari batzuk. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan)

Portugal aldean, dantza bitxiak omen dira, neska gazteek dantzatzen dituztenak, eta **emankortasun** eta ugalkortasun kantak ere bai. Patziku Perurena

Emankortasun tasa munduan (2000). Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emankortasunari esker (4); **eta emankortasun** (3); **eta emankortasunaren** (3); **lurraren emankortasuna** (4)

---

emantzipatu, emantzipa, emantzipatzen **1** da/du *ad* mendetasunen batetik askatu.

Gipuzkoarren %16 besterik ezin dira **emantzipatu** 30 urte bete baino lehen. Berria - Euskal Herria

Nola lortuko dute **emantzipatzea** jasotzen duten soldatarekin? Berria - Ekonomia

Igaro den mende erdi honetan garapen-bideko herrialdeetan izan den industrializazioguneen ugaltzea ezin bereiz daiteke, beraz, kolonia-estatututik **emantzipatu** izanetik. Koro Navarro

Kristau Elizatik sortu eta gero **emantzipatu** zen Mendebaldeko Gizarteak erabilera sekularra emateko bere mende hartu zituenean. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izenondo eta izen gisa)

Sistema horiek galarazi egiten baitigute norabide zuzenean aurrera egitea, mundu gizarte **emantzipatu** bateranzko bilakaerarik izatea bezala. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hego Euskal Herrian hemezortzi urtetik goitikoek edo adin txikiko **emantzipatuek** dute aldez aurretiko borondateak agiri batean jasotzeko eskubidea. Berria - Euskal Herria

---

emantzipatzaile *izond* emantzipatzen duena.

Zalduaren idatzi interesgarriak ukazioaren eginkizun **emantzipatzailean** sinesten duela adierazten du: bizitza eta literatura sentitzeko era berezi bat. Markos Zapiain

---

emantzipazio *(orobat **emanzipazio** g.er.)* 1 *iz* mendetasunen batetik askatzea.

Emantzipazio [...]: zerbitzari batek besteren tiraniatik bere buruaren despotismora egiten duen aldaketa. Xabier Olarra

Emakumeen **emantzipazioaren** aldeko borroka garaiotan. Pablo Sastre

Ezer gutxi nekien historiaz, materialismo dialektikoaz, langileriaren **emantzipazioaren** aldeko ideien arteko lehiaz eta borrokaz. Xabier Mendiguren Elizegi

K.o. 1914rako juduen **emantzipazio** ofiziala giza jardueraren maila guztietan aspalditxotik lorturiko zerbait zen Mendebalde modernoko munduaren eskualde guztietan. Etxeen prezioak biderkatzen ari zirelako eta gazteon **emantzipaziorako** aukerak murrizten. Iñaki Mendiguren

Herri pobreen **emantzipazioa** bi bidetatik etor daitekeela. Berria - Gaiak

Gizartean nagusi den alienazioari **emantzipazioa** kontrajartzen zaio, eta askatasuna eta berdintasuna aldarrikatzen dira. Askoren artean

Gizartearentzat lan eginez, **emantzipazioa** helburu. Berria - Gaiak

2 (izenondoekin)

Kristau-kontzientzia **emantzipazio** juridiko hutsa nahikoa ez zela ohartzera iritsi zen. Iñaki Mendiguren

Tribu-legearen loturekiko **emantzipazioa** -soziala, politikoa eta erlijiosoa-. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geure **emantzipazio**-bide propioa eginez erasoei aukerarik ere ez emateko, euskal gizarteak erdietsitako lorpenak eta etorkizunerako asmoak babesteko. Berria - Euskal Herria

Emantzipazio tasa bi puntu jaitsi da Gipuzkoan 30 urte arteko gazteen %16k soilik dute beren kabuz bizitzeko aukera. Berria - Euskal Herria

EAEn, 1996tik 2000ra 15 eta 29 urte bitartekoen **emantzipazio** kopurua %18tik %16ra jaitsi da. Berria - Mundua

---

emanzale *izond (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)* adierazten dena ematea atsegin duena.

Guraso babes **emanzaleetan** azkena izan naiz. Oskar Arana

Eta nik, eztabaidazale ere ez naizenez, bakeoso eta amore **emanzale** gehiago [...] esaten diet. Pello Zabala

Haiek ez ziren ezaguera **emanzale**, eta nik ere [...] ez nuen Josuren bizian muturra sobera sartu nahi. Aingeru Epaltza

---

emanzipazio ik **emantzipazio**.

---

emari 1 *iz* ibai batek daraman, iturri bati darion edo hodi batetik igarotzen den ur edo isurkari kopurua, eskuarki denbora unitateko.

Nafarroako Erriberan 2003ko otsailaren hasieran gertatutako uholdeetan 3.000 metro kubikokoa zen Ebro ibaiaren **emaria** segundoan. Edurne Elizondo

Toki hartan, Ibai Elurtua, errekaren **emariaz** handiturik, Edoraserantz eta muino eta landa berdeetarantz amiltzen zen haitzen gainetik, lurrun eta apar artean. Agustin Otsoa

Uholdeak gertatzen badira Irati ibaiaren **emaria** «kontrolatu» ahal izanen dutela nabarmendu zuen obrako zuzendariak. Berria - Euskal Herria

Emaria ez zen oso ugaria, baina tenperatura atsegina zen bero sapa horretan freskatzeko. Urtzi Urrutikoetxea

Ibai baten **emaria** bezalakoa zen: beti bera eta beti desberdina. Karlos Linazasoro

Euriteez gainera, izotz urtzeek eragin dute ibaien **emaria** handitzea. Berria - Mundua

Bentrikuluaren uzkurtzea amaitzen denean, bere egoera normalera itzultzen da aorta, eta arteria txikiagoetara bultzatzen du odola; horrenbestez, egonkor samar mantentzen da **emaria**. Irene Aldasoro

Horietarikoak dira urdailean eta hesteetan (janaria irabiatu eta bultzatzeko), zain eta arterien paretetan (odolaren presioa eta **emaria** erregulatzeko), biriketan eta maskuriaren paretetan dauden muskulu lisoak. Irene Aldasoro

Ibaiaren **emariari** jarraitu nion orduan, egun luzeetan. Jon Maia

Ibaira isurtzen denean ur horrek ibaiko uraren **emari** guztia garrazten du, Nik lau urte nituen lanean, haren aita [...], semearen adar jotze luzeaz nardaturik, hilabete-sarien **emariari** giltza ematera deliberatu zenean. Santiago Iruretagoiena

Plantaren tamaina **emariaren** eta kutsaduraren araberakoa da. Berria - Euskal Herria

Bihotzaren filosofia espirituarena baino maiteago zuen; ur-lasterraren abiadaz eta **emariz** garatzen ditu bere ideiak, forma gehiegi zaindu gabe. Juan Martin Elexpuru

2 irud/hed

Argi-iturri askok, gainera, zerura zuzentzen dute beren **emaria**, energia alferrik galduz eta ortziaren berezitasunak guztiz ezkutatuz. Berria - Gaiak

Hor agortu zen Milangoen iturria, baina Deportivokoenak ez zuen askoz **emari** handiagoa izan. Berria - Kirola

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Iturri bat zegoen patio erdian, bere **emari** etengabearekin patxadaz janzten zituena ingurumariko landare eta harriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ibai zabala zen, **emari** indartsuarekin. Juan Kruz Igerabide

Nire biografia sekretua horixe besterik ez da: **emari** erraldoi amaigabe bat. Karlos Linazasoro

Emari handiko ibaiaren gaineko zubi batera heldu ondoren, lautadetara jaisteko bidea aurkitu zuten. Agustin Otsoa

Etenkako ponpaketa, teknikoki, ez da batere eraginkorra, zeren eta presio eta **emari** maximoak jasateko eginak egon behar baitute kasu horretan ponpak, hodiek eta balbulek. Irene Aldasoro

Etenkako **emari** baten gorabeherak leundu beharrean gertatzen den ingeniariak espantsio-ontzi bat jartzea pentsatuko luke ziur asko. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agoitzetik igaroko den ur **emaria** 269.862 metro kubikokoa izanen litzateke segundoan. Edurne Elizondo

Uholdeak kontrolatzeko, ur-**emari** ekologikoari eusteko eta, Nagoren egindako nasari esker, aisialdirako balioko omen du Itoitzek. Edurne Elizondo

Premia izanez gero, hodi horietako odol-**emariak** bero kantitate handia garraiatzen du gainaldera, izerdia lurruntzean larruazaletik galtzera. Irene Aldasoro

Korronte piezoelektrikoek halako ponpaketa bat eginarazten diete zelulen mintzei, eta horrek asko handitzen du hezurretako kanal estuetako elikagai-**emaria**. Irene Aldasoro

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ibaiak daraman ur-**emari** maila handitzearen ondorio direla esatea bezalatsu. Iñaki Heras

6 emaitza, ondorioa.

EBk **emaria** egitea ez du kentzen Europako estatuek bere kabuz diru gehiago ematea. Berria - Gaiak

Eskoziako Alderdi Nazionaleko jarraitzaile batek 120.000 euroko **emaria** eman zion taldeari azken borondatean. Berria - Mundua

Harrezkeroztik, ehunka mila dolarreko **emariak** sartu dira Kerryren kanpainerako kutxan. Berria - Mundua

Bihotzaren filosofia espirituarena baino maiteago zuen; ur-lasterraren abiadaz eta **emariz** garatzen ditu bere ideiak, forma gehiegi zaindu gabe. Juan Martin Elexpuru

Arteola kultur elkarte sortu berriaren lehen **emaria** dira atzo aurkeztutako *Littera&Musika* bildumako lau disko-liburuak. Berria - Kultura

Informatuta gaudelako sentsazioa dugu, baina iturburu apur batzuen **emaria** baino ez gara jasotzen ari. Txema Ramirez de la Piscina

Bere esku kutsatuz hartu zituen ontzi sakratuak eta santutegi hura aberastu, edertu eta ohoratzearren aurreko erregeek eginiko **emariak** lapurtu. Elizen arteko biblia

Sagardoa eta txakolina, horiek gure udazkeneko **emariak** dira. Pello Zabala

Jaramonaldi horien **emarietako** bat neskaren biografiaz zerbait ikastea izan zen. Edorta Jimenez

Informatuta gaudelako sentsazioa dugu, baina iturburu apur batzuen **emaria** baino ez gara jasotzen ari. Txema Ramirez de la Piscina

Hurritzak eta kanaberak, beren ale, fruitu eta beste jangai, mila **emari** biltzeko gauza izango ziren kapazo, saski, otar, esporta eta banasta egiteko estimatuak izango ziren. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere emaria (3); **emari ekologikoari** (5); **emari handiak** (3); **emaria ez** (3); **ibaiaren emaria** (3); **ur emari** (8); **ur emari handiak** (3); **ur emaria** (9); **ur emariak** (5)

---

emaro *adlag* geldiro, astiro.

Gero elurra hasiko da, **emaro**, etenik gabe. Joseba Sarrionandia

Neskak arropak jantzi zituen eta lepo atzea laztandu zion negarrez ari zen mutil biluziari, **emaro**, ama krudel batek bezala. Harkaitz Cano

Bizitza erraz jariatzea nahi dut, trabarik gabe, **emaro** odolusten den suizida bati isurtzen zaion bezala, eztiki. Berria - Kultura

Hain **emaro**, hain **emaro** hasi zen hurbiltzen, non ez baitzen ezer entzuten, suaren zirtadak eta penduluaren tik-tak hotsa baino. Josu Zabaleta

Emaro, gure hizketaldiaren zurruntasuna arinduz zihoan. Bernardo Atxaga

Elurra ari zuen erdiko lautada iluneko alde guztietan, muino arbolagabeetan, elurra, **emaro**, Allengo zingiran, eta sartalderago, **emaro**, elurra, Shannonen uhin mutiri ilunen gainean. Irene Aldasoro

Eztiro bezain **emaro**. Joan Mari Irigoien

Gero, konpas bat markatzen duenak bezala, eskua aurreko mantaleraino jaitsi eta hasiera eman zion **emaro-emaro** dena estaltzen joan zen isiltasunari. Bernardo Atxaga

Garai hartan biok geneuzkan hamabost urte eta ni jabetuta nengoen nola ari zen laguna **emaro-emaro** gizontzen. Aitor Arana

Congok bi zigarro oker atera zituen jakaren aurrealdeko poltsikotik, Emileri bat luzatu zion, eta praken atzealdean poxpolu bat piztuta kea **emaro-emaro** bota zuen sudurretik. Lopez de Arana

---

emarte *iz* cf **gizarte**.

Aldi hartan, bazen "euskal zibilizazio" bat antzinako Europan eta haruntzago ere hedatua zegoena, gizarte baino gehiago **emarte** edo ema-gizartea zena, matriarkala, ekologista, auzolangilea, berdinzalea, ekialdetikako izurri hondatzaile, menderatzaile, gerrazale, patriarkal, zakil-harroak desegin zuena. Iñaki Segurola

Ikusten ote dugu amodioa? Ez! Baina irriño, keinu, hitz goxo, fereka, elkartasun urrats edo eskukolpe batean sentitzen; bizi bizirik agertzen zauku, **gizarte** (eta emarte edo gizemarte) harremanetan sumatzen dugu. Herria

---

emasaldu *iz adkor* emagaldua.

Hemen puten antza denok daukagu, denok gaude era batera edo bestera salduak, eta denok gara ema- eta gizagalduak, giza- eta **emasalduak**. Iñaki Segurola

---

emataile *izond* **

Orduan, jab-ak eta txepelkeriak utzi eta **emataile** bilakatzen nintzen. Iñigo Aranbarri

---

ematasun ik **emetasun**.

---

emate 1 *iz* norbait (zerbaiten) edukitzaile egitea; (zerbait) norbaiten esku ezartzea.

Une batez mendean har nintzaten uzten nien; eta aski zen **amore emate** hori, mendean har nintzaten uzte horixe, bizi probetxu pixka bat gehixeago har zezaten, beren ebidentzia hazi zekien, eta baita, horrenbestez, nire baitan konbentzimendu indar gehixeago har zezaten. Josu Zabaleta

Amore emate xume bat, bakarrik dagoen eta garrantzi sozialik batere ez duen morroi baten aurrean. Monika Etxebarria

Hargatik da gauza putz eta erraz xamarra euskaltzaleen "euskaraz bizitze" hori, edo bat zinez euskaraz bizi edo ari dela **emate** edo itxuratze hori. Iñaki Segurola

Hagitz ongi ikusia dagoen gauza da "dena **emate"** hori, eta hagitzez hobeki ikusia dagoena da oraino "dena eman" duen pertsona. Iñaki Segurola

Baina, menturaz, bizia **emate** hori ez da bizia galdu behar dugunoi gelditzen zaigun kontsolamendu bat baizik. Iñaki Segurola

Administrazio-korporazio sekularrek, hala ere, antolaketa-eredu bat **emate** hutsa baino zerbitzu sakonagoak ere eman zizkieten elizei. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haren memoriari begirune handia gordetzen zaio, merezi duen bezala, bereziki Frantzian, non berriki haren argizarizko irudi bat jarri duten ikusgai, haren bizitzaren eta zientziari egindako zerbitzuen kontu-**emate** hunkigarri hau duela. Xabier Olarra

Ordain **emate** [...]: okerraren ordaina bai baina asetasunik ez ematea. Xabier Olarra

Rachel bigarren hezkuntzako ikastetxean ari zen eta artean etxean bizi zen garaira jo nuen, Esker **Emate** ostegun hotz batera. Oskar Arana

Philip-ek New Jersey-ra gonbidatzen nau urtero Esker **emate** egunez. Oskar Arana

3 ***amore emate*** gogor edo buru egiteari uztea, onartzea.

Hainbeste ibilaldi zoro hara eta hona, hainbeste ikasketa eta lan, hainbeste min eta neke, hainbeste izu eta negar, hainbeste **amore emate** eta umiliazio bizitza osoan zehar, honetarako? Juan Luis Zabala

Bere ustez egiten ari zitzaidan izugarrikeria nolabait apaldu nahi zuen **amore-emate** horren bitartez. Karlos Zabala

Amore emate lotsagarri honen ondorioz Nafarroako UCDkoak xanpaina edaten ari dira. Berria - Euskal Herria

Ez da **amore emate** liberaletarako unea. Berria - Mundua

Gertagarriagoa zirudien Sobietar Batasuneko gobernuak Estatu Batuekiko gerra baten izugarrikeriei aurre egitea Estatu Batuei **amore-emate** politikoak egitea baino. Iñaki Mendiguren

Hornitzaileak axolagabekeriarako grina unibertsalari egindako **amore-emate** eskuzabala. Xabier Olarra

Terrorismoaren aurkako politika **amore emate** etengabea. Berria - Euskal Herria

---

ematear 1 *adlag* emateko zorian.

Kontua da, txostena burutu berria, ezagutzera **ematear**, desagertu egin dela eta egilea hil egin dutela. Migel Angel Mintegi

Endesaren aktiboak saltzeko asmoa zuela eta Espainiako agintaritzari berri **ematear** zela azaldu zuen Gas Naturalek. Berria - Ekonomia

Munduaren kontra idatzitako hitzak oro alferrikakoak zirela, galdu egiten zirela egunen nekean, eta beti **ematear** ziren urratsetan. Karlos Linazasoro

Baina, ni taldean sartzerako, hogei urteko lana egina zegoen, eta ezkutuan ereindako hazia ageriko fruitua **ematear** zen. Joan Mari Irigoien

Hitz horiek izuturik, Cecilia mutu geratu zen, eta negarrari **ematear** zegoen ia. Josu Zabaleta

Hondarribiko alarde pribatuan parte hartzekoak diren konpainietako buruak abiatzeko agindua **ematear** zeuden. Berria - Euskal Herria

Bularraldean, eztanda egin behar zioten taupadak sumatu zituen, eta bihotzekoa **ematear** zegoela sentitu zuen. Fernando Morillo

2 *amore ematear*

Latrape mendatean gora, Iban Mayo **amore ematear**. Berria - Kirola

Théoden, agian, **amore ematear** zegoen, buru zaharra erortzen uztear. Agustin Otsoa

Olivier etsitzear zegoenean, belarria atean itsatsita komediantea **amore ematear** zegoela iruditzen bazitzaion ere, azken unean berriro hasten zen teklak sakatzen eta sakatzen, indarberrituta. Harkaitz Cano

Amore ematear, halere, detektibearen ustean. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amore ematear (4)

---

ematearren 1 *adlag* emateko.

Txitxikovek, lagunari gustu **ematearren**, zakurkumearen belarriak ukitu zituen eskuaz. Jose Morales

Itxura ona **ematearren** komuneko papera erosi genion, Vittorio Emanuelek susmo txarra hartuta begiratzen zigun eta. Pello Lizarralde

Hala ere, anaiei etsenplu ona **ematearren** eta Dama Pobretasunaren bikaintasun eta duintasunagatik, bazkalorduan limosna bila joaten zen. haiei egiazko obedientziaren etsenplua **ematearren**, besteei erakutsi aurretik bera hasi zen lehenengo betetzen. Askoren artean

Voldemorti aurre egiten saiatu zen, amari ihes egiteko astia **ematearren**. Iñaki Mendiguren

Jakin ere banekien biderik bihurrienak erabiltzen zituela maiz gauzarik errazenak egiteko, batzuetan denbora zer edo zertan **ematearren** eta gehienetan guri adarra jotze aldera. Koldo Izagirre

Absurduki, eskuaz oratu eta burdinaren pisua haztatu nuen, neure buruari adore **ematearren**. Juan Garzia

Horretan ez dago dudarik -erantzun nion, adorea **ematearren**. Jon Arretxe

Txitxikovek, lagunari gustu **ematearren**, zakurkumearen belarriak ukitu zituen eskuaz. Jose Morales

Kieven eta Moskuren arteko auzi bizi bati konponbidea **ematearren** hitzartutako ituna «onartezina» da Timoshenkoren iritziz. Berria - Mundua

On beharrean egin zuen, egoera ezerosoari irtenbidea **ematearren**. Migel Angel Mintegi

Isiltasuna erabatekoa zen eta, bortxatu samarra irudi zuen giroari astindu bat **ematearren**, musu bat pausatu dut bustia sumatu dudan oihan beltzean. Patxi Zubizarreta

Ustekabe bat **ematearren**, andrea eta umea beste leku batean utzi eta bere amaren hotelera joan zen, baina honek ez zuen ezagutu. Bernardo Atxaga

Eta hementxe nago ni, bultzada bat **ematearren**. Berria - Kultura

Bezeroak galdezka ari direlako eskainiko du mailegua batak, eta aukera hori ere **ematearren** besteak. Berria - Ekonomia

Adibide batzuk **ematearren** honakoak eman zituen: [...]. ezinbestekoa da sakabanaketa hilgarria amaitzea gatazka politikoaren konponbidean aurrerapausoak **ematearren**. Berria - Euskal Herria

Kronikaren kontakizunari bizitasun apur bat **ematearren**. Berria - Kirola

Gwainek atzetik ekin zion, ihes egiteko aukerarik ez **ematearren**. Juan Kruz Igerabide

Edozer gauza egingo dut atsegin **ematearren**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Azalpenik ez **ematearren** ote? Sonia Gonzalez

2 *amore ematearren*

Nik gorrotoa ere dexentekoa nion Café Odéon delakoari: emigranteak eta intelektualak, bohemioak eta irakasleak, eta cocotte zaharrak baserri-eskualdeetatik etorritako negozio-gizonentzat; Hannari **amore ematearren** joan ohi nintzen bakarrik Café hartara. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

astia ematearren (3); **atsegin ematearren** (10); **bat ematearren** (15); **denbora ematearren** (3); **ematearren eta** (8); **etsenplu ona ematearren** (3); **ez ematearren** (18); **gustu ematearren** (3); **ona ematearren** (7); **ona ematearren eta** (5)

---

emateke *adlag* eman gabe.

Hala ere Imrek, erizainari abisu **emateke**, haren kafea hartu zuen. Pablo Sastre

Kontsumitzaileari sei motatako diskurtsoren bidezko mezuak igorriko zaizkio etengabe, bakerik **emateke**. Edorta Agirre

Etsaiari, irribarre egiteko astirik **emateke**, burua ireki zion ezpataz. aldaketa sendoak oraindik ere **emateke** daude haur gorren hezkuntza sisteman. Felipe Juaristi

Humeren ustez, hori azaltzeko ikusmolde baten beharra dugu, teoria batena, Hume bera hura **emateke** geratu arren. Askoren artean

---

ematu, ema(tu), ematzen 1 da/du *ad* baretu, bigundu, leundu.

Adierazpen horrek jendearen arrangurak **ematu** zituen. Juan Garzia

Zeren ez baitzegoen haserre hura gozatzerik ez **ematzerik**. Joan Mari Irigoien

Eta, boza **ematzen** zuela, erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Bere doluaren **ematzeko**, espero zuen zentzuzko erantzun bat jasotzea, hitzeman zioten bezala. Berria - Mundua

Artoski lehiatuko dela ama sobera krudel baten kausaz bi presuna jasaten ari diren esetsaldia **ematzera**. Jon Muñoz

Nire kezkarik krudelenak geroztik **ematuak** izan diren arren, badut oraino bihozmin handi bat, noiz bukatuko den aldez aurretik ikus ez dezakedana. Jon Muñoz

Ematurik ere, alkoholaren karga eztia hasia zitzaidan zain-gaineratzen, eta ordu bi eta erdiak ziren. Aingeru Epaltza

2 (era burutua izenondo gisa)

Murmur **ematuak** sortzen dira azoketatik; oinezko lanpetu banaka batzuen urratsek hots egiten dute espaloietan. Karlos Zabala

---

ematutu *iz* ugaztun emeetan, emakuntzatik umontzira doan hodia.

Zirriborro batzuek adierazten zuten nola zakila **ematutuan** barrena sartzen zen, eta nola espermatozoideak pozez saltoka ateratzen ziren, barrualde haietan obulu bakartiaren bila. Xabier Mendiguren Elizegi

Sei urte bazirela **ematutuak** lotu zituenetik. Hasier Etxeberria

ematxar *iz* emakumeez mintzatuz, gaiztoa, doilorra, zitala; emagaldua.

Hegoaldeko hainbat euskal herritarrez gain komunista eta frantziar antifaxista -gizatxar eta **ematxar** asko (*indesirables français*)- eta III. Reicheko milaka herritar hartu zituen Gursek. Jokin Urain

Nik ez nuela eskurik egoera malerus horretan [...], nire andre ohiak baizik, **ematxar** alaena, senar gaixoa -bai, "gaixoa" erran zuen- aski ez, eta semea ere abandonatzeko birikak zituena. Aingeru Epaltza

Aldi batean oso emakume bitxia iruditu zitzaion Candil kaleko **ematxar** bat; begi beltzak, itzal ilunez margotuak zituen, eta irribarreak hortz zuriak erakutsarazten zizkion. Josu Zabaleta

Gogoan izango duzu, halaber, Juan Inazio Iztuetarekin ume sasikoa munduratu zuen Maria Concepcion de Bengoetxea **ematxarra**, arrunt izenez Kontxexi deitzen dutena. Anjel Lertxundi

Ematxar bati kantatutako edozer baldarra bada ere berez eta derrigorrez, izan dira beren hizkera txit apainarekin baldarkeria leuntzen jakin dutenak, hor dituzu Horazio edo Virgilio. Anjel Lertxundi

Bai, edo zurruta, ezpataketa, biraoak, borrokak, **ematxarrak** ... Horraino hel zintezke. Juan Garzia

Efaltzeko prestatzen ari ziren, eta **ematxar** batzuek gelako eremu osoan zehar zabaltzen zuten beren begi margotuen begirada. Josu Zabaleta

Nola ote da Xarles Erregeren ohorea, ospea eta loria, bai eta Frantziako errege indartsuen bertutea, **ematxar** baten ahulezia bihurtu? Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ematxar** (3)

---

ematzearren *izond* ematzeko.

Baina zure malurek hunkitu naute, haiek **ematzearren** zernahi egitera prest egoteko heineraino. Jon Muñoz

---

emaxteki *iz adkor* emaztekia.

Arrunt **emaxtekia** izan behar da. Janbattitt Dirassar

Behialako sarekadan harrapatua izan zen Loli, eta zoaz zu jakitera **emaxteki** batek zer kantatzen ahal duen, polizia bortitzaren meneko dagoenean Itxaro Borda

---

emazain *iz* **

Gau batean, gerlariaren itxurak egiten zituen **emazain** zirtzil batek, zintzurra ebaki zion Muturri gerrikoa osteko. Juan Garzia

---

emazirin *izond/iz adkor* emaziringa.

Ederki ematen du, gero, nik, aita laztana hala hil diotenaren seme honek, zeru-infernuek bultzatua mendekuzko ordainera, puta baten modura hitzez lasaitu beharra barrena, madarikazioka, **emazirin** alproja baten modura! Juan Garzia

---

emaziringa *iz adkor* ematxarra.

Emaziringa zikin batekin joan da. Xabier Mendiguren Elizegi

Besteen barreak entzuten nituen; «urdanga zikina, **emaziringa**, bazakinat gogoko izango dunala» eta horrelakoak esaten zizkidaten. Berria - Euskal Herria

- **Emaziringa**! Patxi Zubizarreta

---

emazital *iz* emakume zitala.

Sinistuko ahal didazu, jauna, esaten badizut ez zitzaidala burutik pasatu ere **emazital** hark nire alabari begia erantsi ziolako ematen zidanik lana. Josu Zabaleta

---

emazte *(**9.076** agerraldi, **256** liburu eta **1.785** artikulutan; ETCn **49.800** agerraldi) iz* **1** senarrari buruz, harekin ezkondua dagoen emakumea.

Horregatik, gizasemeak bere aitamak utziko ditu eta **emazteari** elkartuko zaio, eta biak bat izango dira.

Senarrak **emazteari** begiratu zion eta bekokia zimurtu zuen suminduta. Mirentxu Larrañaga

Emazte batek senarrari jarraitu beharko lioke. Oskar Arana

Aintzina familia solas: legez-lege gizon bihi batek ez ditzazke bi **emazte** ukan. Herria

Emaztea hil zitzaionean, bidaiatzera joan zen jenerala. Xabier Olarra

Etxera itzultzean, **emaztea** eta etxekoak onik ikusiko ahal ditut! Juan Kruz Igerabide

Joanes Albretekoak, ordea, erregina zuen **emazte**. Aingeru Epaltza

Bertze egun batean Maracaibo bereganatu zuela eta sekulako triskantza egin zuela han ere, gizonak hilez eta haien **emazteak** bortxatuz. Joan Mari Irigoien

Emaztea lanera joana zen; haurrak lotan zeuden. Eskarne Mujika

Emazteak utzi ninduenetik txoriak bezala bizi naiz, libre, bidean azaltzen zaidanari lotuta soilik. Migel Angel Mintegi

Ahul eta bizitasunik gabe gelditzen da senarra, **emazteak** zoriontsu egiten ez badu. Elizen arteko biblia

Lantegiko zuzendarietako bat balitz bezala mintzatu ohi zen **emaztea** senarraz. Mirentxu Larrañaga

Jacquesek eta bere **emazte** Luizak, Brasilen jaiotako emakume begi-eder eta ile-kirruak, ez zuten beste semerik ez beste alabarik. Felipe Juaristi

Jauregiko atarian, hantxe zeuden Ulisesen **emazte** Penelope bereganatu nahi zuten gizonak, jan eta edanean. Juan Kruz Igerabide

Ez zidaten ezer utzi, neure **emazte** Ana eta neure seme Tobias baizik. Jose Antonio Mujika

Gizon ezkondua naiz eta hatz eta behatz guztiak neure **emaztearentzat** ditut, hari zor diodan fideltasunagatik, ezkontzaren sakramentua bitarteko. Joan Mari Irigoien

Barkatu diozu beraz intendentaren **emaztearekiko** abentura? Jon Muñoz

Jipoiaren ostean, **emazteak** barkamena eskatu zion senarrari eta senideak biziki poztu ziren albistearekin. Patxi Zubizarreta

Urak eramandako **emazte** eta semeen bila. Berria - Mundua

Aditu ere, egun batez, bi erromes, senar eta **emazte**, Kastillako beroaz arrenguratzen. Piarres Aintziart

Seme-alaba, **emazte**, senide nahiz lagunari ez eman zeure gain aginpiderik bizi zaren artean. Elizen arteko biblia

Urrunerat beha zegoen, bai, aitona Nikolas, bere **emaztea** izan zenaren dorretxerat. Joan Mari Irigoien

Ez zion deus esan neskari, baina aita-amei bai agertu **emaztetzat** nahi zuela. Juan Garzia

Ez banu bortxatu, ez nuen Maddi **emaztetzat** hartzen ahalko. Itxaro Borda

Eta sendatu zenean, emazte pobre hura egin zuen bere **emazte**, egin zuen Ejiptoko erregin, eta bertze guztiak, gaixto frogatu zituenak, bere lehengo **emazte** erregina barrenean zela, bizirik erre arazi zituen. Patziku Perurena

Zezenketaren buru, hantxe zegoen Franco diktadorearen **emazte** Carmen Polo. Edorta Jimenez

Fernando Buesa politikari sozialistaren **emazte** Natividad Rodriguezek, berriz, bakearen ordainetan garaipen politikorik ezin dela onartu esan zuen. Berria - Euskal Herria

Eguna argitzen hasia, plazerraren azken apurrak artean dastatzen gure gizona etxera itzuli zenean, **emaztea** hilda aurkitu zuen egongelan, lepoa ebakita. Migel Angel Mintegi

Hiriko ergelenak ere ez baitzuen era hain kaskarra erabiliko **emaztea** hiltzeko. Migel Angel Mintegi

Parte hartzen dugu bere **emazte** eta bi haur ttipien pena izigarrian. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Emazte ona izateko hezten da Malin emakumea, senarraren itzal izateko. Berria - Gaiak

Emazte leiala izan nahi dut. Koro Navarro

Harpean **emazte** eder bat ikusi zuen, jakin gabe nor zen. Herria

Ez dugu hala ere egungo egunean ikusten hiruretan hogei milako errenta duen andereñorik erlijioan sartzen, ez eta lehendakariaren **emazte** gazte eta ederrik xangrinez hiltzen. Jon Muñoz

Emazte aberatsa hartu nian, ordea, gizon ederra eta ausarta bainintzen. Juan Kruz Igerabide

Emazte ohia eta biok salmentatik ateratako dirua erdi bana egitekotan geunden. Oskar Arana

Emazte adoretsua senarraren poza: bakean emango ditu honek bere bizi-urteak. Elizen arteko biblia

Emazte legezkoen motez. Iñaki Iñurrieta

Hargatik, etxeko ohean nagusitasuna galtzeko arriskurik ez zuela frogatzen bazion (eta, ondorioz, kontu korrontean), **emazte** kezkatsuari ez zitzaion gogorregia suertatuko senarraren joera. Migel Angel Mintegi

Alargunak bere **emazte** zena du gogoan. Imanol Zurutuza

Herrialde batzuetan legezko **emazteak**, etxean, gure klimetan **emazte** bakarrak dituen ohoreak ditu. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Hori horrela da mahometarren artean, non hainbat **emazte**-mota baitaude, zeinen haurrak etxean jaiotzen direlako ezagutzen diren, edo kontratu zibilengatik, edo ama esklabo izan eta, ondorioz, aitak haurra beretzat hartzen duelako. Iñaki Iñurrieta

4 emakumea. ik **emazteki**.

Lili Marlenek ez zuen lagunik, ez gizon, ez **emazte**. Itxaro Borda

Hori da iraultza, hala nola 1980-ean agertu zen **emazte** bat emaztearena egiten zuela pastoral batean. Herria

Nabarrenkoxen zarraturik ginen nafartar eta zuberotar guztiak igo ginen biharamunean harresietara, gizon, haur eta **emazte**, muga herrietako zenbait biarnesekin batera. Aingeru Epaltza

Errepikatzen dena ez da oharpena bakarrik, topatzen ditugun **emazteak** behin eta berriro itsusi eta baldanak izatea de fakto, baizik horrek ia printzipio baten sendotasuna dauka: herrialde rustikoetan, dio beste leku batean, emakumeak beren landetako tximeletak baino zorion gutxiagokoak dira. Koldo Izagirre

Ospitalertsak, Madrilgo **emazte** bat, bere oporren parte bat hemen iragaiten du. Piarres Aintziart

Kanpoan naiz berriz eta **emazte** bat jestuka ari zait, adieraziz hark duela zigiluaz markatzen *credenciala* udaletxean. Piarres Aintziart

Manex Goihenetxeren gorpua eta **emazte** batena atzo aurkitu zituzten pic du biscau (biarno) mendian. Berria - Kultura

Mireille Darc zine jokolariak hautatu ditu zenbait **emazte** presondegitik berrikitan jalgiak direnak. Herria

-Eta ainitz **emazte** ezagutu dituzu, Daniel? Menane Oxandabaratz

Ahozko otoitzaz gorago aipatuari, eratxiki otoitzeko asko **emendakin**, Albi hiriko santa Klaran abat-andre den Ana Ezpeleta nafarrari eskainia. Piarres Xarriton

Ahantzi nahi duenak oroit du, dio esaera zaharrak, eta **emendakin** bat ere egin dakioke: [...]. Juan Garzia

Proposatu **emendakinei** eginen zaien harreraren beha dago. Berria - Ekonomia

Emendakina: Ez zen beste Edipo bat izango, Henryren istorioa hain ondo amaituz gero. Javi Cillero

Matuszak andereak galde berezi bat eginik, jadanik ikasleer emaiten den laguntzaz bestalde, laguntza **emendakin** bat egina zaio, 100 eurokoa, estranjerian formakuntza egiteko. Herria

2003 ko konduen kudeatzeak eman du 239.418 euroko **emendakin** bat eta onartua izan da 15 bozez eta batek ez du parte hartu. Herria

2 legegai batean edo, egiten den aldaketa proposamena. ik **zuzenketa 8; emendagailu 2**.

Frantziako Konstituzioaren 2. artikuluari **emendakin** xume bat bozkatu behar zitzaion: orain arte den "Frantsesa da Errepublikaren hizkuntza" artikuluari "tokiko hizkuntzak errespetatuz... gure ondarearen barne baitira" **emendakina** nahi zen onartarazi. Herria

Honela dio bertze **emendakin** batek: ingurumenari kalte larria eragin dakiokeelarik, botere publikoek, ardura xedea baliatuz, arriskuen ebaluaketa eta behin-behineko neurriak bermatu beharko dituzte, kaltea saihesteko helburuz. Berria - Euskal Herria

Oinarrizko xedeari, hala ere, **emendakinak** onartu dizkiote eta ordainketa kopurua urtean 50 eurotan mugatzeko proposamena onartu du Frantziako Legebiltzarrak. Berria - Euskal Herria

Babes maila handitzeko **emendakinak** onartzea espero dute erakunde ekologistek. Berria - Gaiak

1996an Alderdi Demokratak immigrazio legeei eginiko **emendakin** baten bidez *Secret Evidence Law* edo Froga Sekretuen Legea onartu zuen. Berria - Mundua

Hiru **emendakin** segurik baditu pasarazi nahiak; gasoilaren gaineko tatsa ez dadin emenda, aspaldian lanik gabe direneri orai arte emaiten ziren laguntzak hein berean atxikiak izan diten eta mozkin-zerga ez dadin apal gobernuak aipatu heinean bainan gutixago. Herria

PSOEk ez du **emendakinik** aurkeztu eta negoziatzeko prest dago, ERC eta ICV-EUiA, aldiz, ez. Berria - Mundua

Azken orduko **emendakin** eta aldaketek legearen espiritua aldatu duela salatu dute talde ekologistek. Berria - Euskal Herria

Baina, ez zutela osoki amore eman nahi eta, zenbait **emendakin** eransteko entsegua egin zuten. Berria - Ekonomia

Zuzenketak: guztira 187 **emendakin** aurkeztu dira. Berria - Euskal Herria

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Bi txostenek jasotako **emendakin** partzialei begiratu bat ematean datorren asteko Biltzar Nagusian «joku» gehien eman dezaketen gaiak antzeman daitezke. Berria - Ekonomia

Epea zabalik egon da proposamen edo **emendakin** alternatiboak aurkezteko. Berria - Harian

Lehenengo **Emendakinaren** aldeko Komitearen laguntza izan arren, [...] Hollywoodeko Hamarrei urtebeteko kartzela zigorra eta milaka dolarreko isuna jarri zizkieten. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan)

BNG Bloke Nazionalista Galiziarrak Espainiako Senatuko Batzordean aurkeztutako beto **emendakina** onartu zuten BNG, EAJ, CiU eta PP alderdiek, iazko abenduaren 29an onartutako konstituzio **emendakinari** jarraiki. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
emendakin aurkeztu (3); **emendakin bat** (7)

---

emendakingile *(orobat **emendakin egile**) iz* emendakin bat egiten edo aurkezten duen pertsona.

Txosten nagusian «ezker abertzaleak Bergaran egindako proposamena (autodeterminazioaren inguruan bat egitekoa, alegia)» aipatzen den lekuan honako hau jartzea proposatzen du **emendakin egileak**: « (--...) ezker abertzaleak Bergaran autodeterminazioaren inguruan bat egiteko egindako proposamena zeinari Aralarrek gehitu zizkion aniztasunaren errekonozimendu eta politikoaren nagusitasuna». Berria - Ekonomia

Borroka Kutxaren sorreraren inguruko emendakinak berriz, bertan behera utzi zituzten **emendakingileek**. Berria - Ekonomia

---

emendapen *iz***

Dena den, handiagoa izan zen Espainiako eta Euskal Herriko erkidegoetako **emendapena** beste tokietakoa baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

emendarazi, emendaraz, emendarazten du *ad* emendatzera behartu.

Eta nola urrikiaren karrak **emendarazten** baitziozkan ber hutsak, erran ahala baino gehiago ari zen bere buruaren apaltzen, osoki belzten, bularrak joiten zituela eta begietarik nigarra zariola. Xipri Arbelbide

---

emendatu *(**972** agerraldi, **40** liburu eta **645** artikulutan; ETCn **4.800** agerraldi)*, emenda, emendatzen **1** da *ad* gehitu, berretu.

Horiek horrela, gertatu zen edozein herritako jende zintzoen arteko atxikimendua **emendatu** zela, eta edozein herritako jende makurren artekoa, berriz, gutxitu. Piarres Xarriton

Nazio zibilizatuak munduko jabe direnean, urrea eta zilarra egunero **emendatzen** dira, dela berenetik ateratzen dituztelako, dela dauden lekura bila doazelako. Iñaki Iñurrieta

Komunikazio-giro edo inguru-testua heterogeneoagoa den heinean, luzatzeko joera dute bertsolariek erabiltzen dituzten bertso moldeak (puntu gehiagoko bertsoak), eta nabarmen **emendatzen** da, era berean, bertsoen dentsitate poetikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Denbora berean, Ximunen alderat jadanik neukan estimua zinez **emendatu** zen. Daniel Landart

Osabak oihu egin bezain fite, berretu eta **emendatu** ziren jendearen irriak, irainak eta laidoak. Joan Mari Irigoien

Profesionalen kopurua ere azkarki **emendatu** da. Berria - Kultura

Ikus daitekeenez, herri guztietan **emendatu** zen ikertzaileen kopurua azken hamarkadan zehar. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ekimenak **emendatu** ondoren eragileak ezagutza ematen ari zaizkio Uda Lekuri. Berria - Euskal Herria

Hilabeteak joan, hilabeteak etorri, aldakuntzak burutu arau, urduritasuna **emendatu** zen. Elena Touyarou

Zer egin behar da irakurzaletasuna **emendatzeko**? Berria - Euskal Herria

Gasoilaren gaineko tatsa ez dadin **emenda**, aspaldian lanik gabe direneri orai arte emaiten ziren laguntzak hein berean atxikiak izan diten eta mozkin-zerga ez dadin apal gobernuak aipatu heinean bainan gutixago. Herria

Hasierako abantaila hori **emendatua** gertatu zen, zeren ezustean ikusi baitzen egoera ezin hobean dagoela sanskritoa, konparaketa hori argitu ahal izateko. Isabel Arrigain

Goi-zelai haietako bizi bortitzak gizakiaren errealitatean jarri ninduen orduan: ez zen deus **emendatzerik**, dolore gehigarririk asmatzerik. Piarres Aintziart

2001ean %0,6 **emendatu** zen eta %0,2 baizik ez 2002an. Berria - Ekonomia

Beti eta jende gehiago bizi da hor, Itsasun eta beste herrietan etxe frango eraikitzen da: ehunetik 20ez **emendatu** dira jendeak 20 urtez. Herria

• **2** du *ad*

Denbora berean bazkideak **emendatzeko** kanpaina indartuko dute. Berria - Euskal Herria

Antzezleen kopurua batetik bira **emendatu** zuen. Juan Garzia

Ordena berriaren baitako fedea ukapen horiek ahultzeko orde **emendatu** zutela zirudien. Elena Touyarou

Lehen estimuetan 500 000 euro kostako dira, eta Claude Olive axuantak erran duenaz, hiru hizkuntzetan ezartzeak faktura 20 000 euroz **emendatuko** du. Herria

Ekintza horiek, bestalde, **emendatu** egiten zituzten ondasun fiskalak. Iñaki Iñurrieta

Horra nun deputatu eta zenaturrak plantatu diren minixtroen soldatak behar zituztela **emendatu**! Herria

Bigarren denboraldian **emendatu** dute diferentzia. Herria

Jende boteretsuenak ufaka eta ufaka ari dira, haize handiago batek su garrak **emenda** ditzan. Herria

Eta berdin ene interes pribatuak hunkiak izanagatik, gerta liteke enetzat baliagarri izatea ene izkribuen arrakasta **emendatzeko**. Piarres Xarriton

Alabainan, holako prezioekin, laborariek nola atxik edo **emenda** dezazkete beren lurrak? Herria

Urteek, ahuldadea baino areago, aginpidea **emendatu** ziotela zirudien. Juan Garzia

Gainera, bigarren enkontru hark, lehenak ez bezala, lagun guztien testigantza izan zuen, eta horrek satisfazioa **emendatzen** zion konformidadeari. Pedro Alberdi

Zu eta zure ohiturak zelatatzen nituen, baita zugana zetozen pertsonak ere, eta horrek guztiak urritu barik **emendatu** egiten zidan zurekiko jakin-mina. Eduardo Matauko

Zuk sorrarazi dizkidazun sentimendu guztiei, **emendatuko** diet esker on betikoaren sentimendua. Jon Muñoz

Taldea aurrean bazihoakion zanpa-zanpa; urratsa **emendatu** zuen. Itxaro Borda

Zeruari eskerrak, ez ditu **emendatu** Jainkoarekin dituen zorrak. Aingeru Epaltza

Estatuak dituen zorrak beti **emendatuz** doatzi. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aintzina emendatu (9); **aintzina emendatu da** (3); **aldiz emendatu** (4); **an emendatu** (3); **azkarki emendatu** (15); **azkarki emendatu da** (4); **bat emendatu** (5); **batez emendatu** (7); **batez emendatu da** (3); **berretu eta emendatu** (4); **berriz emendatu** (5); **berriz emendatu da** (4); **biziki emendatu** (7); **da emendatu** (5); **da emendatu baizik** (5); **dela emendatu** (3); **dira emendatu** (4); **direla emendatu** (4); **doi bat emendatu** (3); **emendatu baita** (3); **emendatu baizik** (11); **emendatu baizik ez** (3); **emendatu bat** (8); **emendatu bat eta** (4); **emendatu behar** (9); **emendatu da** (93); **emendatu da aurten** (3); **emendatu da bigarren** (9); **emendatu da hirugarren** (6); **emendatu da lehen** (6); **emendatu dela** (11); **emendatu delarik** (5); **emendatu den** (5); **emendatu dena** (3); **emendatu dira** (33); **emendatu direla** (8); **emendatu direnak** (3); **emendatu dituzte** (5); **emendatu dituztela** (4); **emendatu du** (5); **emendatu dute** (8); **emendatu egiten** (3); **emendatu ere** (6); **emendatu eta** (11); **emendatu eta azkartu** (3); **emendatu gabe** (4); **emendatu nahi** (7); **emendatu zauku** (3); **emendatu zela** (4); **emendatu zen** (11); **emendatu ziren** (6); **emendatu zuen** (3); **entsegu emendatu** (10); **entsegu emendatu bat** (8); **ere emendatu** (3); **eta emendatu** (11); **eta emendatu ziren** (3); **ez da emendatu** (5); **ez dira emendatu** (4); **ez emendatu** (9); **ez emendatu da** (5); **familia emendatu** (26); **familia emendatu da** (21); **horiek emendatu** (3); **jendetzea azkarki emendatu** (3); **jendez emendatu** (3); **kopurua emendatu** (10); **oraino emendatu** (4); **polliki emendatu** (7); **ponduz emendatu** (3); **sukarra aintzina emendatu** (3); **urte emendatu** (3); **urte emendatu da** (3); **urtez urte emendatu** (3); **zergak emendatu** (3)

aintzina emendatuz (6); **arrakasta emendatuz** (3); **bat emendatua** (7); **bat emendatua eta** (3); **beti emendatuz** (14); **beti emendatuz doa** (3); **beti emendatuz joan** (4); **emendatua eta** (6); **emendatua eta hiru** (3); **emendatuak eta** (10); **emendatuak eta bi** (4); **emendatuko baizik** (3); **emendatuko da** (10); **emendatuko dela** (4); **emendatuko dira** (9); **emendatuko direla** (4); **emendatuko dituela** (3); **emendatuko dituzte** (3); **emendatuko du** (3); **emendatuko dute** (4); **emendatuz ari** (3); **emendatuz doa** (11); **emendatuz doa eta** (3); **emendatuz doala** (3); **emendatuz doatzi** (5); **emendatuz joan** (13); **emendatuz joan da** (3); **emendatuz joan dadin** (3); **emendatuz joanen** (12); **emendatuz joanen dela** (5); **entsegu emendatua** (3); **entsegu emendatuak** (3); **ere emendatuko** (4); **eta emendatuz** (3); **gastuak emendatuz** (3); **haietarik bat emendatua** (3); **hiruak emendatuak** (3); **hiruak emendatuak eta** (3); **kopurua emendatuz** (3); **oraino emendatuz** (4); **oraino emendatuz joanen** (3); **zergak emendatuko** (3)

aintzina emendatzen (3); **azkarki emendatzen** (4); **berretzen eta emendatzen** (5); **berriz emendatzen** (3); **beti emendatzen** (6); **beti emendatzen ari** (6); **emendatzea da** (3); **emendatzea erabaki** (3); **emendatzea ez** (3); **emendatzen ahal** (4); **emendatzen ari** (39); **emendatzen ari da** (10); **emendatzen ari dela** (3); **emendatzen ari dira** (5); **emendatzen ari eta** (3); **emendatzen baita** (3); **emendatzen da** (13); **emendatzen dela** (3); **emendatzen den** (3); **emendatzen dira** (6); **emendatzen du** (4); **emendatzen eta** (4); **ere emendatzen** (4); **eta emendatzen** (8); **etengabe emendatzen** (4); **harremanen emendatzea** (4); **kapitalaren emendatzeko** (3); **kopurua emendatzea** (3); **kopurua emendatzeko** (3); **kopurua emendatzen** (10); **kopurua emendatzen ari** (5); **kopuruaren emendatzea** (3); **zergen emendatzea** (3)

---

emendatze **1** *iz* gehitzea, berretzea. ik **emendio**.

Ikastolak urtea bukatzen du kopuru **emendatze** batekin, 135 haur badira, hazpandarrak eta inguruko herrietatik jinak, ama eskolatik bosgarren urte arte. Herria

Herriko Etxean berean, lan ordu **emendatze** batzu aipagai ziren bai eta ere lan postu berrien sortzea. Herria

Emendatze horrek jende metaketa eragin du, eta, ondorioz, atxilotuen bizi baldintzak gogortu egin dira. Berria - Euskal Herria

Insomnioak joen **emendatzea**, presoen **emendatzearekin** batean gertatu zen, hots, Cartierren etorrerarekin batean. Xabier Montoia

Izan ere, aurtengo aurrekontuetan, abonamenduen prezioen **emendatzeari** esker, iaz baino 947.000 euro gehiago jasotzea aurreikusi zuen klubak. Berria - Kirola

1.498 dira aurten, **emendatzea** %3koa delarik. Berria - Euskal Herria

Ordainketa bezeroaren ahalen arabera eginen da, **emendatzeak** eta auzi gastuak baztertuta. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskarazko irakaskuntzak **emendatze** handia du eskualdean. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriaren erakargarritasunak prezioen **emendatze** azkarra eragiten du. Berria - Euskal Herria

Elementu horiek uztartzean, ondorio zuzena da buruaz bertze egiten duten pertsonen **emendatze** latza. Berria - Euskal Herria

Emendatze handia eta desorekatua. Berria - Euskal Herria

Donibane Lohizunen etxeen %56 inguru bigarren etxebizitzak dira eta horrek eragiten du prezioen neurri gabeko **emendatzea**. Berria - Euskal Herria

Aurreikusitako inflaziotik gorako **emendatzea** izan dute umezurtzen sariek ere. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emendatze prozesua kanpoko jendeari lotua da erabat, eta bertako biztanleriaren beherakada nabarmena estaltzen du. Berria - Euskal Herria

Lehen taldearekin batera, talde honetan ematen da urtez urte **emendatze** kopuru handiena. Berria - Euskal Herria

Duela milioika urte hasi den bizidunen arteko botere eta **emendatze** borroka latzaren logikan sartzen zen zure amak egin zidana! Ramuntxo Etxeberri

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hor ageri da sortze-**emendatze** horren inportantzia ezin preziatuzkoa. Herria

Azken urteetako biztanle galtzea **emendatzea** bilakatu da, eta horrek hiriaren eraldatzea eraginen du, bere osotasunean. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emendatze bat (6); **emendatze handia** (3); **emendatze hori** (10); **emendatze horrek** (6); **emendatze horren** (6); **emendatze pollita** (3); **emendatzerik ez** (3); **eta emendatze** (3); **prezio emendatze** (3)

---

emendatzearren *adlag* emendatzeko.

Juzku eskas horrek ez zion galarazten honako edo harako pertsonaia publiko zein pribatuaz galdetzea, Ttipiren artxibo mardulen kontura bertzeen biziaz zekien apurra **emendatzearren**. Aingeru Epaltza

---

emendazio *iz* gehitzea, berretzea. ik **emendio**.

Hunek jasan behar duela bere undarkinen ezartzeko %141 eko **emendazioa**. Herria

emendio **1** *iz* gehitzea, berretzea.

HERRIKOA-ren berezitasuna da akziodunak gutartekoak direla gutiz gehienak (3300), **emendio** honekin botere publikoei ere idekitzen zarete beharrez? Herria

Beste bi **emendioak** saneamentu gastuen gorakadan finkatuak dira. Herria

Hona zein arrazoi eman duten kargudunek aitzinean, 23,24 milioi liberako **emendioaren** esplikatzeko duela bi urtetik oraingo proiektura. Herria

Estatu osoko kutxak despendioen **emendio** gorakada ehuneko seian atxikitzeko manua emana zuelarik, Baionakoak kopuru hori kasik doblatu du. Herria

2005 urteko **emendioa** ehuneko 70 eta 80 artean izanen da. Herria

Ikertzaileen kopuruaren **emendioari** dagokio beren ikerketarako ahalmenaren handitzea, BPGren hazkunde naturalari nolabait esateko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Irudimenaren **emendioa** gehituta, ordu erdiz, halako voyeurismo suerte batean erauntsi nintzen, ikusmena barik, entzumena bide. Aingeru Epaltza

Neure garaipenean sentitu dudan plazerraren **emendioa**, oraindik ere sentitzen ari naizena, ez da loriazko sentimenduaren zirrara eztia baizik. Jon Muñoz

Merezi zuen irabaztea hiru entsegu markatu baititu bi **emendiorekin** eta beraz 19 pundu. Herria

Entsegu bat bakarrik markatua izana da, bertze pundu guziak, 20, Wilkinson-en lana, entseguaren **emendioa**, bi punpa-laster eta lau gaztigu-ostiko. Herria

· Lege Biltzarrean gertatu da eta nehork ez du kasurik egin UMP-ko eskuindar batzuk sakatu dutelarik **emendio** bat ziona historia liburuetan behar zela aipatu Frantziak egin duen ongia itsas haraindiko eremuetan eta bereziki Ipar-Afrikan. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haren ustez bi arrazoinek esplikatzen dute **emendio** berezi hori. Herria

Sindikatuak berriki aurkitu duen EDF barneko dokumentu batek, tarifa horien **emendio** larri bat iragartzen du heldu diren bizpahiru urtetan. Herria

Hiriko aparkaleku guzietako prezioak hain berean ezarriko dituzte eta, hamabost bat urte honetan aldaketarik ezagutzen ez zuten gune batzuek **emendio** serioak jasanen dituzte. Herria

Holako **emendioari** buru egiteko hiru urtetan erakasle postu bat baizik ez dugu ukan. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haur **emendio** horrek erakasle postu erdi baten beharra agerian emaiten du. Herria

Kantonamendu hortan azken urtetan sekulalo jendetze **emendioa** izan da eta orai biztanle kopuruak 14.000 jende gainditzen ditu. zer nolako tresna berriak behar lituzkete hemengo hautetsi eta kargudunek lurraren prezio **emendio** harrigarriari buru egiteko molde iraunkorrean? Herria

Ordukotzat erran zinuen kapital **emendio** bat egin beharko zela, zergatik kapital **emendio** hori orain? Herria

Noizetik noizera idekia da kapital **emendioko** epe hori? Herria

Datuok urteko lehen hiruhilekoaren emaitzak aditzera emateko eginiko prentsaurrekoan plazaratu zituen Euskadiko Gizarte- **Emendiotarako** Borondatezko Erakundeen Baterakundeak. Berria - Ekonomia

4 onura.

Baina zure ezusteak zer **emendio** dukeen partitze horren arrazoiak jakiten dituzunean! Jon Muñoz

5 ***emendiozko*** *izlag*

Zakur [...]: **emendiozko** edo ordezko Jainko mota, munduaren adorazio gehiegizko eta haborokina bereganatzeko izendatua. Ez dago garbi letraren izena **emendiozko** oroibide gisa aldatu zen ala izenak klatx eta suntsidurak naturaren txantxa izaten jarraitu zuten. Xabier Olarra

Alfabeto ingeleseko alferrikako letra denez, ortografiaren erreformatzaileen erasoen aurrean **emendiozko** garaitezintasuna dauka, eta haiek bezala hizkuntza berak adina iraungo du. Xabier Olarra

Hizketan ikastean, hauxe da garapena: esaldi bakuna, alborakuntza, koordinatuak (aurrena **emendiozkoak**, besteak gero), eta, azkenik, menpekoak. Markos Zapiain

---

emendu **1** *iz* emendioa.

Talde bakoitzak entsegu bat markatu du **emendurik** gabekoa, bakoitzak lau gaztigu-ostiko eta, beraz, diferentzia datza Wilkinson-en punpa-laster delako horretan, azken minutan joa. Herria

2

Ez du utzi Lege Biltzarreak egin dezan bere lana, legearen eztabaidatzea, **emenduen** onartzea edo baztertzea izan diten kontrakoenak edo gehiengoaren aldetik jin zitekeenak. Herria

---

emergente *(corpusean* ***emerjente*** *soilik)* *izond* azaleratzen dena.

Zenbaiti beldurra ere sorrarazten dioten herrialde **emerjente** horietatik -zehazki Argentina, Brasil, Txile, Txina Taipei, Indonesia, Thailandia, India, Korea, Singapur eta Malaysiatik- inportaturiko produktu eskuz landuek, OCDEko herrialdeen BPGaren %2a inguru baino ez omen dute hartzen. Iñaki Heras

---

emergentzia *(orobat* ***emerjentzia****)* **1** *iz* larrialdia.

Potentzialtasun zientifiko-teknikoak determinatzen du hein handi batean egingo denaren **emergentzia** bera, bere ahalgarritasunak bere baitan daramalako egin beharko litzatekeenaren hazia. Berria - Gaiak

Umeen telefonoak dira atean zintzilik dauden zenbaki horiek guztiak (laburrena, ez; laburrena, **emergentziatarako** da). Arantxa Iturbe

Emerjentzietarako Aurpegien Katalogora jo eta sarrera debekatu dit zaindariak. Harkaitz Cano

2 (hitz elkartuetan)

Ondorioz, Vandellos II zentralean **emergentzia** plana jarri zuten indarrean gauerdian. Berria - Gaiak

Erakunde armatuetako kideak **Emergentzia** Lege bereziaren baitan epaitzen zituztenez, legeak berak zehazten zuelako. Berria - Euskal Herria

---

emerito ik **emeritu**.

---

emeritu *(orobat* ***emerito****)* *izond* irakasleez, gotzainez eta kidekoez mintzatuz, lan edo kargu bat adinagatik utzi ondoren nolabait lan horretan jarraitzen duena.

Alemaniar Filologiako katedradun **emeritua** Madrilgo Unibertsitate Konplutensean. Berria - Kultura

Antropologian aditu eta irakasle izateaz gain, Biologia eta Karakterologia irakasle **emeritua** zen Erromako Unibertisate Gregoriarrean eta Txileko Unibertsitate Katolikoan. Berria - Kultura

Desobedientzia zibilari buruzko gogoetan jardun zuten Setien Donostiako gotzain **emerituak** eta Sadaba Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasleak. Berria - Euskal Herria

Milango kardinal **emerito** Carlo Maria Martinik. Berria - Gaiak

75 urtetik gorako euskaltzain osoak eta ez 70 urtetik gorakoak, hedabide horrek aipatu zuenez euskaltzain supernumerario **emeritu** izango dira aurrerantzean. Berria -

Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
donostiako gotzain emerituak (3)

---

emerjente ik **emergente**.

---

emerjentzia ik **emergentzia**.

---

emetasun *(orobat **ematasun** g.er.)* **1** *iz* emea denaren nolakotasuna. ik **emakumetasun**.

Nire **emetasuna** estali egin dudala deskubritu dut eta orain, galdezka hasi naiz konstrukto bat ez ote naizen. Ana Urkiza

Forma biribilak, definizioz, **emetasuna** adierazten du; angeluek, berriz, artasuna. Joan Mari Irigoien

Emetasun horrek zenbat dauka amatasunetik? Ana Urkiza

Txikitasunak ematen digu **emetasunaren** tamaina. Ana Urkiza

Emetasunaren zantzua hartu izan dio jendeak hego haizeari. Patziku Perurena

Inoiz ez ninduen oporrik utzi, ezta **emetasunaren** zor odoltsua kitatu behar zuen egunetan ere. Aingeru Epaltza

Emetasunez eskatu die ikasleei isiltzeko eta. Jon Arretxe

Gerria artean laua zela ikusia zion, eta nola biribildu zen oharkabean, harik eta oraingo kurbatura, graziaz eta **emetasunez** betea, lortu zuen arte. Patxi Zubizarreta

Aurtengo joerak sentsualitatea, distira eta mugarik gabeko **emetasuna** aldarrikatzen ditu. Patxi Iturritegi

Katharine Hepburn, butaka baten ertzean eserita, lan-baldintzak zehazten ari zitzaion Spencer Tracyri, bere **emetasuna** ederragotzen zuen profesionaltasun hieratiko batez. Anjel Lertxundi

Nerea, ezpainetan beti irribarrea duten horietakoa zen, hiztuna, eta **emetasunez** gainezka egiten zuen. Eider Rodriguez

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emaztea emakume zintzoa zen, gizonek gogoko dituzten dohainez betea: **emetasun** handikoa, amatiarra, fidela, etxeko andere bikaina eta, oso gaztea izan arren, seme-alabak garaiz eta ugari eman zituena. Patxi Zubizarreta

Soin sendo, leun eta luze hura **emetasun** gaztearen sinboloa iruditzen zitzaion. Ibon Uribarri

Andrea, fintasuna, dotorezia, **emetasun** heldu elegantea, zibilizazioaren produktua da. Koldo Izagirre

Gogoa bete-betean lokarrarazi bazioten ere, gorputza, aldiz, esna zegoela bere **emetasun** betean. Ibon Uribarri

Emetasun erabatekoaren haragiztapen bat bihurtu zuen bere burua. Oskar Arana

Mutil zurbil argal horrek bere lehenbiziko senarra zekarkion gogora, **emetasun** laztangarriko proventzar horietako bat. Karlos Zabala

Ganba eta izkira zuriek, otzaren barrutik, beren milaka begien atxabitxizko botoi ia ikusezinak jartzen zituzten pila haien **emetasun** lausoaren erdian. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere obran **emetasun** sentsibilitate indartsu bat senti daiteke. Berria - Kultura

Emetasun lurrin tanta bat suma zekiokeen, baina apaiz batena ere izan zitekeela erabakirik nuen. Joxean Agirre

Zeren ikustekoak baitziren haren manerak eta mugimenduak, **emetasun** puntu batek ukituak bezala, eta haren boza, castrato batena zirudiena. Joan Mari Irigoien

Emetasun izpirik gabe, erizainak izaki bereziki doilorra dirudi. Xabier Paya

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
emetasun eternoa (8); **emetasuna eta** (3)

---

emetu, eme(tu), emetzen da/du *ad* eme bihurtu.

Gizartean parekidetasuna emakumea artzetik etorri dela uste du, eta ez gizona **emetzetik**. Berria - Kultura

Geldi-geldi geratu zen, ordura arte inarrosten eta dardarka egondako zuhaitza bezala, orain, itsas-airea **emetzean**, hostoz hosto irmotzen doana. Anton Garikano

Neskaren batek, ezta? -ahotsa maltzur **emetuz** esan zidan. Edorta Jimenez

Haren neska-lagunarengana jiratzen nintzela, eta ahots-tonua **emetzen**, honela segitu nuen: [...]. Joan Mari Irigoien

---

emetxo *iz adkor* emea.

Zein basatiki joko liokeen larrua gorputz desiragarria duenaren kontzientzia osoz begiratzen dion **emetxo** horri, zutik jarrita, burua koltxoira makurrarazita! Pako Aristi

---

emetzar *iz adkor* eme galanta.

Ez du merezi daukan moduko **emetzarrik**. Urtzi Urrutikoetxea

---

emezaletasun *iz* emeen zale denaren nolakotasuna.

Hasieran obraren barnean aurkitutako parekotasunek txundituko dute, irakurlearen eta idazlearen arteko gauzatxo, ñabardura konpartituek, insomnioa dela, beldurra dela, **emezaletasuna** dela, edo arzaletasuna dela. Lander Garro

---

emezko *izlag* sexu emekoa. ik **emakumezko**.

Gizonezkoa ala **emezkoa** zaren jakin nahi dute, preso, errefuxiaturik edo bestelako arazoren batek urruntzen zaituen jakin nahi dute. Hasier Etxeberria

Mina, damua eta lotsa soilik jaso ditzake ordainetan hala dabilen **emezkoak**. Hasier Etxeberria

Aukerarik ez zitzaidan sekula faltatu **emezkoen** harietan katramilaturik ibiltzeko. Hasier Etxeberria

Indarra, gizonarena dirudien arren, **emezkoarena** dela egiazki. Hasier Etxeberria

---

emigrante **1** *izond/iz* emigratzailea.

Konturatzen zen, frantsesa hitz egiteko moduagatik ere, ez ginela benetako nekazari **emigranteak**, baina ez zuen galderarik egiten. Bernardo Atxaga

Azken berrehun urteotako euskaldun **emigrante** eta erbesteratuekin zazpi nazio egin daitezke. Joseba Sarrionandia

Emigrante haiek ez zioten baliorik sumatzen beren hizkuntzari edo kulturari, eta ozeanoa zeharkatu orduko zaku zahar bat bezala uzten zuten bazterrean. Bernardo Atxaga

Australiara joan eta han gobernuak eragindako atsekabeak jota hil zen beste **emigrante** baten emaztea izan zen. Pello Lizarralde

Emigrantea betiko pertsona bera delakoan itzultzen da jaioterrira. Bernardo Atxaga

Emigranteak emigranteekin biltzen dira. Ana Urkiza

Herri txiroetako **emigranteak**, ordea, ez dira ezertaz beldurtzen, ez baitute beste salbabiderik. Joseba Urteaga

Senargaia gainera **emigrantea** zuen. Bego Montorio

Beren zirkua eraiki zuten berriro, eta Portugaldik isilka alde egindako **emigranteak** Frantziara pasatzeko eginkizuna hartu zuten. Bernardo Atxaga

Bizitzari buruz inorekin hitz egiteko aukerarik gabe utzi bagintuzte bezalakoa duk **emigranteon** zorigaitza! Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hura ez zen ordea **emigrante** amateur, gustuz bidaiatzen zuen horietako bat. Harkaitz Cano

Baina egia da baita ere, han, Parisen, **emigrante** hutsa nintzela. Ana Urkiza

Beraz, nire lehengusua hildako **emigrante** haren semea zen, eta osabak emaztearekin batera hartu zuen. Pello Lizarralde

Noizbaiteko **emigranten** mentalitatea edo izpirituaren moldaketa. Herria

Amerikara xentimorik gabe joandako milaka eta milaka euskal **emigranteen** bertso, gutun eta berri apalak. Anjel Lertxundi

Beltzak, hispanoak edota beste edozein jatorritako **emigranteak**. Berria - Kultura

Ameriken Arteko **Emigranteen** Eskubideen Behatokiko presidente Diego Carrasco txiletarrak. Berria - Mundua

Latinoamerikarako eta Kariberako Errefuxiatuen eta **Emigranteen** Erakundeko ordezkari. Berria - Mundua

---

emigratu, emigra, emigratzen **1** du *ad* jaioterria utzi atzerrian kokatzeko.

Emigratzea erabaki zian. Jon Muñoz

Zuek ez duzue inoiz **emigratu**. Patxi Zubizarreta

Asko dira baimena lortu gabe **emigratu** eta lanean ari direnak. Berria - Harian

EAE kanpotik 30.328 immigrazio izan ziren, eta erkidegotik kanpora **emigratu** zutenak azkenik, 21.304. Berria - Euskal Herria

1955ean Kanadara **emigratu** zuen, eta 1989an hil zen Toronton. Josu Zabaleta

Oso erne egon behar nuela Frantziara **emigratu** zuen gure osabak problema asko izan zituelako poliziarekin. Fernando Rey

Ahizpa beltzaranak, orduan, Suitzara **emigratu** zuen zerbitzari lanean aritzera. Pello Lizarralde

Bere garaian Holandara **emigratu** eta gaur egun Polonian dauden juduek ezin izango dute berriro Holandara etorri. Josu Zabaleta

XIX. mendean 29 milioi europearrek **emigratu** zuten Ameriketara. Pako Aristi

Egungo ijito edo erromen arbasoak IX. eta X. mendean Indiatik Persia eta Armeniara **emigratutakoak** dira. Berria - Mundua

Molak berak 1984an **emigratu** zuen Etiopiatik. Berria - Mundua

2 (era burutua izen gisa)

Sei urte gerra karlistan, Bergarako bake faltsua, **emigratuak** milaka Ameriketara, Foruen murrizketa; berriro gerra, berriro porrota, berriro bake faltsua, Foruen abolizioa. Joxe Azurmendi

Bere Frantzia maiteak **emigratuok** kontzentrazio eremu batean sartzen gintuela ikusteak hilko zuen. Matías Mujika

3 irud/hed

[Karbono atomo] bat, begiz joa duguna, hesteen atalasa zeharkatu, eta odol-errekan sartzen da: **emigratzen** du, kirio-zelula baten atean jotzen du, sartu, eta zelularen parte zen beste karbono bat ordezkatzen du. Juan Garzia

Burgesia txikiaren mundurantz **emigratzen** ari nintzen pixkanaka, beren goatekeetan onartzen ninduten baldintza bakar baina oso zail batekin, txolina ez izatearena. Joseba Urteaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **emigratu eta** (3); **emigratu zuen** (7); **emigratu zuten** (6)

---

emigratzaile *iz* emigratzen duen pertsona.

Barruan baimenik gabeko 300 **emigratzaile** baino gehiago zeuden, Indiakoak, Pakistangoak eta Sri Lankakoak. Gotzon Garate

Atzerrian sartzeko biderik erabiliena, **emigratzaileei** gezurrezko marinel-agiriak eskuratzea da. Gotzon Garate

Ferry bat **emigratzaile**-geltokitik aldentzen ari zen. Lopez de Arana

Emigratzaileak esportatzen zituzten herrialde nagusietatik etorritakoek beren famili iraganari ahalik eta estuen helduta jarraitzeko jokaera izaten zuten, beren herrikideekin ezkonduz. Iñaki Mendiguren

---

emigratze *iz* jaioterria utzirik atzerrian kokatzea.

Lehenengo aldia baitzen Ninik **emigratzea** aipatzen zuena. Josu Zabaleta

---

emigrazio *(orobat **emigrazione** g.er.)* **1** *iz* emigratzea.

Britainiar gobernuak **emigrazio** hori sustatu zuen, bere *dominions* direlakoak jendeztatzeko. Koro Navarro

Emigrazioa beste biderik ez zioten utzi Pio gizajoari. Xabier Etxabe

Gutxitan aztertzen da bi fenomeno horien arteko lotura, **emigrazioaren** eta kapitalen irteeren artekoa alegia. Koro Navarro

Emigrazioa nagusi den auzo batean egokitu zaigu hotela. Edorta Jimenez

Garai hartan gure auzoan ez zegoen hainbeste artista eta inguruan bizi zen jende gehiena adinduna zenez, mesfidantzaz begiratzen gintuzten: **emigrazioko** poliziei deitzen zieten, arrautzak ere jaurti izan zizkiguten leihora. Harkaitz Cano

Emigrazioko poliziak etorriko lirateke eta... Iñaki Zabaleta

Zu ere legez kanpo zaude eta **Emigraziokoek** ez dute gupidarik izaten. Iñaki Zabaleta

Ez dut uste **Emigraziokoak** deitzea lagun ekintza daitekeenik. Iñaki Zabaleta

Bertan dago **Emigrazioaren** Museoa. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bordeletik Baionara bidean, Hugok **emigrazio** politikoko jende prozesioekin egiten du topo, Espainiako beste Estatu kolpe batetik ihesi (Narvaez jeneralarena). Koldo

Izagirre

Eskolan ez baliete *monarcha* direlakoen **emigrazio** heroikoaz alamenik emango, berek ez lukete hain modu afektatuan jokatuko. Bernardo Atxaga

Liberalek ere, jeinu espainolaz eta literaturaz, Alemaniatik zabaldu eta ja Europa osoan modan zegoen moldean idazten dute, batez ere **emigrazio** ingelesa ezagutu dutenek. Joxe Azurmendi

Mendearen bukaeran, **emigrazio** anglosaxoia ahitu zenean, Mediterraneoko herrialdeetara zabaldu zen fenomeno hau. Koro Navarro

Emigrazio juduaren zentro bihurturik, bi gerren artean, New York zen yiddish kulturaren munduko gune nagusietako bat, Varsovia eta Vilniusen maila berekoa. Koro Navarro

Garai hartaraz gero, ez da **emigrazio** esanguratsurik izan Euskal Herrian. Koldo Zuazo

Gaur egun, ukaezina da europar gizartea, oro har, inmigrazio urte luzeen eta etengabeko **emigrazioen** emaitza dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Dena dela, ez zen atzerrirako **emigrazioa** eten, baina aldatu egin zen norabidea; Ameriketara gabe, Frantziako hiri hazietara begira jarri zen: Paris, Bordele, Paue... Koldo Zuazo

Hazkunde hori dela eta, asko gutxitu zen Ameriketarako **emigrazioa**. Koldo Zuazo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusten dugu, zaila zaigu **emigrazio** mota bat delinkuentziarekin ez lotzea. Iñigo Aranbarri

Pasolinirenean Friuli **emigrazio** lurra da historiaren gertalekua; gurea etorkinen helburu zen. Josu Zabaleta

Gertakari berria zen inmigrazioa ere, arteetan Euskal Herria bera zelako **emigrazio** harrobia. Koldo Zuazo

Karlistaden ondoko **emigrazio** uholdeari. Joxe Azurmendi

Inolako paperik gabe bizi zen, **Emigrazio** Zerbitzuak eskua noiz botako zion beldurrez. Iñaki Zabaleta

Joachim 1935 urtetik aurrera gogotik aritu zela itsas haraindirako **emigrazio**-baimena lortu nahian. Joxe Austin Arrieta

Joachimekin ezkonduta egon zenean ere, badirudi lanean aritu zela, itzulpenetan eta hola, baita **emigrazio**-garaian ere. Joxe Austin Arrieta

Haren bigarren senarra, Piper delakoa, ez dut ezagutzen, berarentzat ere **emigrazio**-aldiko ezagupide hutsa izaki, nonbait. Joxe Austin Arrieta

4 irud/hed

Arimen **emigrazioari** buruz doktrina faltsuak hedatzea eta finkatzea, gizakiak engainura eraman nahian. Imanol Unzurrunzaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
emigrazioa eta (3); **eta emigrazioa** (3); **euskal emigrazioaz** (3)

---

emigrazione ik **emigrazio**.

---

eminente *izond* gailen, goren mailako.

Eta orain, ertaroko izkribu zaharrok leitzekoan, *pomada aguavino* eta *pomada mosto* euskal pitarra eta sagardoa izan ote litezken bururatu zait, baina, filologo **eminente** horien esku uzten dut nere zalantza. Patziku Perurena

---

eminentzia *iz* goren mailako pertsona.

Muazinak, brahmanak, sendalariak, konfesoreak, **eminentziak**, presbiteroak, primatuak, prebendadunak, erromesak. Xabier Olarra

Ander Letamendia, pilotazale sutsuaz gain **eminentzia** bat da pilota munduko medikuntzan. Berria - Kirola

Bai, esadazu, **eminentzia** horrek; noiz izan du Inazio Tordesillasek benetako kontzientzia ideologikorik? Jokin Muñoz

Nirekin, aitarekin eta zurekin, **eminentzia**. Jokin Muñoz

Atea zabaldu, eta **"Eminentzia"**, esan zuen, "hire bila zatozak". Inazio Mujika Iraola

-Zera, **eminentzia**! -teteldu zuen Pernilek-, badaki gauza hauek zer diren. Koldo Biguri

PPren **eminentzia** grisa. Joxe Azurmendi

---

emir **1** *iz* musulman herrietan, agintaria, printzea.

Iruñeako eta Nafarroako erregearen etsai handienetarik izan zen Al-Mundir Zaragozako **emirra**. Herria

Katarreko **emir** Sheik Hamad Bin Khalifa Al Thani xekeak aurreneko Konstituzio iraunkorra idatzi eta hurrengo urtean indarrean sartuko dela helarazi zuen atzo. Berria - Mundua

Gaiur erregeak Kontseilua bildu zuen, eta, bisir eta **emir**, ministro eta handiki, denak aurrera agertu zitzaizkiolarik, Budurren erotasunaren albistea eman zien. Patxi Zubizarreta

Mesfidantza-giro horretan, kalifak berak izendatutako **emirrak** bidali zituen Andaluziako lurraldeetara. J.M. Olaizola "Txiliku"

Emirra eta khanak zaldi gainetik jaitsi ziren, bai eta haien segizioko jaun gorenak ere. Karlos Zabala

Tatariarren abangoardiak su eman ote zien, edo **emirraren** armada probintziaren azken mugetaraino aurreratua ote zen dagoeneko? Karlos Zabala

Armada sail oso bat zekarkion Ivan Ogareffek **emirrari**. Karlos Zabala

Emirrak ezarritako zigorra entzun zuelarik, Mikel Strogoff ez zen kikildu. Karlos Zabala

Kanpamentua jasotzean, Tomsk izango zen **emirraren** egoitza, handik ekialdeko Siberiako hiriburura eraman bitartean. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Antso Handia errege kristauaren eta Al Mundir Zaragozako **emir** musulmanaren semearen arteko adiskidetzea ospatuko duen une horretan kantuz arituko diren hirurak, musika emango duten zazpiak eta dantzatuko diren dozenak zuberotarrak dira. Berria - Kultura

Emir apetatsuaren sekretua zen. Karlos Zabala

Hantxe zegoen kanpatua Feofar Khan, Bukharako **emir** ankerra. Karlos Zabala

Orduko **emirra** -titulu hori hartzen baitzuten Bukharako khanek- Feofar Khan zen, eta aurreko **emirren** arrastoari zerraion hura ere. Karlos Zabala

3 *emir herri* ik **emirerri**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
emirra eta (4); **emirrak keinu bat** (3); **emirraren abangoardia** (3); **emirraren armada** (3); **emirraren aurrera** (4); **emirraren eta** (3); **emirraren tropak** (4); **eta emirraren** (11); **mikel strogoff emirraren** (3); **strogoff emirraren** (3); **zen emirraren** (4)

---

emirerri *(orobat **emirrerri** eta **emir herri** g.er.) iz* emir baten jaurgoari atxikiriko lurraldea.

Arabiar **Emirerri** Batuetan. Txema Ramirez de la Piscina

Arabiar **Emirerri** Batuko Obaid bin Saif Al-Nasseri ministroak iritzi du «prezioak altuak» direla, «baina ez hainbesterako». Berria - Ekonomia

Abu Dhabi Arabiar **Emirerriko** telebista kateak aurreratu zuen berria. Berria - Mundua

Atzo jakin zen Abu Dhabi **emirerriak** uko egin ziola autogilearen kapitalean sartzeari. Berria - Ekonomia

Nahiz eta Islam herriek oro har, Arabia eta **Emirerri** Saudiak kendurik, egutegi gregorianoa erabiltzen duten beren nazioarteko harremanetan. Pello Salaburu

Uzbekistan Bukhara, Kokand eta Samarkand **emirerri** eta khanerrien menpe. Berria - Harian

Lehen aldiz **emirerriko** sari nagusia jokatuko da gaur, 11: 15ean hasita. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabiar emirerri (27); **arabiar emirerri batuak** (10); **arabiar emirerri batuetan** (10); **emirerri batuak** (10); **emirerri batuetan** (10); **eta arabiar emirerri** (8)

---

emirrerri ik **emirerri**.

---

emisio 1 *iz* igorpena. (gas eta kidekoena)

Atmosfera kutsatzen duten **emisioak**. Berria - Euskal Herria

Industria sektorean gas kutsakorren **emisioa** murrizteko plana. Berria - Gaiak

Industria prozesuetako **emisioak** gutxitzea ia ezinezkoa da. Berria - Euskal Herria

Helburua gas toxikoen **emisioa** murriztea zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Emisioak gutxitzea lortuko dugu, eta, gainera, errentagarria den sektoreetan.122 sinatzaile horiek karbono dioxido eta beste gasen **emisioen** %44 besterik ez zutelako ordezkatzen. Berria - Euskal Herria

Nola lor dezake industriak CO2 **emisioak** gutxitzea? Berria - Euskal Herria

Erregai-pilak elektrizitatea eta beroa sortzeko erabilitakoan, CO2ren **emisioak** %30 jaits daitezke, eta nitrogeno eta sufre oxidoak mila aldiz gutxiago emititukо dira. Berria - Gaiak

Bakoitzak 1990ean eta 2004an egindako **emisioen** arabera. Berria - Euskal Herria

Hirugarren urtez jarraian, berotegi efektua eragiten duten gasen **emisioen** inbentarioa aurkeztu zuen Ingurumen Sailak. Berria - Euskal Herria

Berotegi-efektuko gasen **emisioak** murriztera edo ozono-geruzaren suntsitze prozesuari aurka egitera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1990tik gaur arte, %12 hazi da nekazaritza sektoreak egiten duen berotegi efektuko gasen **emisioa**. Berria - Euskal Herria

Saihestu egin behar da biodegradagarriak ez diren hondakinen **emisioa**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zabortegian sortzen den kiratsa eta **emisioak** materia organiko gehiegi pilatzeagatik gertatzen direlako. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

30 herrialde industrializatu behartuta egongo dira, legez, berotegi efektua eragiten duten gasen **emisio** mugak betetzera. Berria - Gaiak

Emisio eskubideen salerosketa CO2 gutxiago isurtzeko metodo ona da. Berria - Euskal Herria

Industria eta eraikuntza sektoreetako **emisio** kopurua apur bat hazi zen 2003. urtean. Berria - Euskal Herria

Hondakin kutsakorren **emisio** erritmoak ez du ekosistema naturalen asimilazio gaitasuna baino handiagoa izan behar. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

119 gunetan isuri eta **emisio** legedia hausten dutela ikusteak ez du, jakina izanagatik ere, egoeraren lotsagarria ezkutatzen. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zaborra errausteak dioxina-**emisio** handia dakarrela ere esan zuten hizlariek. Berria - Euskal Herria

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Instalaziokako [karbono dioxido] **emisio** isurketa eskubideen zerrenda. Berria - Ekonomia

Zornotza Bizirik-ek dionez, Bizkaia Energia plantarekin %81 handituko dira Durangaldean nitrogeno oxido **emisioak**. Berria - Euskal Herria

5 igorpena. (uhin elektromagnetikoena eta kidekoen bidezkoa)

Ziurtatua du ETBk partida horren **emisioa**. Berria - Kirola

Radio Sevilla hartako **emisio** batean. Edorta Jimenez

Bertsozale Elkartearen eta ETBren arteko desadostasun batzuk tarteko, eten egin zen **emisioa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Erresumako telebistek, jakina, debekatu egin zuten erreportajearen **emisioa**. Iban Zaldua

Enkarterri Irratiak gaur bertan eskainiko du lehenengo **emisioa**, irekiera ekitaldiari buruzkoa, hain zuzen ere. Berria - Kultura

Euskarazko **emisioetarako** ikus-entzuleak lortzea. Berria - Euskal Herria

Euskara hutsezko **emisioek** lehentasuna izango dutela esleipenean. Berria - Harian

Emisioetan lehentasunezko hizkuntza euskara izateko eskatu dute. Berria - Euskal Herria

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Talde mediatiko handietan integratuta daude, eta beraien **emisio** esparrua, hiriburua da. Berria - Harian

2003an ere diru laguntzarik gabe gelditzeko zorian izan da Euskalerria Irratia, aurreko urtean bezala **emisio** kontzesioa eduki beharra baldintza moduan jarri baitzuen Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak. Berria - Euskal Herria

2002ko diru laguntzak jasotzeko irratiak **emisio** baimena behar zuela argudiatu du epaileak. Berria - Euskal Herria

Barruti bakoitzari lau telebista kate dagozkio eta hamar urterako balioa izango dute **emisio** baimenek. Berria - Harian

Emisio eskubideen truke ere diru gehiago aurrikusi dute. Berria - Kultura

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irrati **emisio** bitartez zabaltzen hasi zen mezuan desobedientziarako deia egiten zuen. Berria - Mundua

Atzo proba **emisioa** egin zuen, ordu erdiz Korana irakurrita. Berria - Mundua

8 igorpena, hotsaren bidezkoa.

Irekidura handiagoko fonema bat balin bada, *alla* multzoan bezala, hotsaren beraren **emisioa** da organoak geldi daudenean dirauena. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere emisio (3); **deialdietan emisio** (3); **duten gasen emisio** (3); **efektuko gasen emisioa** (9); **emisio baimena** (6); **emisio eskubideak** (7); **emisio eskubideen** (5); **emisio esparruari** (3); **emisio esparruari dagokion** (3); **emisio kopurua** (5); **emisioak gutxitu** (4); **emisioak gutxitzea** (5); **emisioak gutxitzeko** (5); **emisioek gora** (3); **gasen emisio** (4); **gasen emisioa** (12); **gasen emisioak** (4); **gasen emisioen** (3)

---

emisora 1 *iz* irrati emankizunak igortzen dituen instalazioa.

Iriondok dei zaparrada jaso zuen Loiolako **emisoran**. Iñigo Aranbarri

Emisora batzuek hasiera-hasieratik eskaini zioten arreta bertsolaritzari. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Irratian uhin laburreko **emisora** ingeles bat aurkitu zuen. Josu Landa

Denbora etxean ematen nuen, uhin laburreko **emisorak** entzuten; poliziaren **emisorak** sintonizatzen nituen, ea aditzen nuen Brent inguratzen ari zirela adierazten zuen zerbait. Xabier Olarra

Irratia piztu eta **emisora** batzuk probatu nituen, baina alferrik. Fernando Rey

Emisora guztietan berdina zen eta irratia itzaltzea erabaki zuen. Harkaitz Cano

3 **emisoratan** eta ETBn. Pello Zabala

Catalunya Radio-ren **emisoretako** zuzendari Motserrat Minobisek uste du, hedabideek genero indarkeriarekin amaitzen lagun dezaketela. Berria - Euskal Herria

Jaun andreok, exilioko Eusko Jaurlaritzaren **emisoraren** irrati entzuleak. Berria - Kultura

BBC Radio I **emisorako** disko jartzaile mitikoena eta denbora gehien zeramana zen John Peel. Berria - Kultura

2 ***irrati emisora*** *(orobat* ***emisore*** *g.er.)*

Boston Universityk duen **irrati emisora** da, adibidez, Boston eta aldirietan gehien entzuten denetako bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Irrati-emisora bakoitzak omen du dezimistei buruzko bere saioa. Andoni Egaña

Eskoziarako eta Eskoziatik egindako **irrati emisora** berria abiatzeko gestioak egiteko. Berria - Mundua

Kataluniako telebistaren sorrera aipatuko nuke, egun hiru kate dituena, eta katalanezko lau **irrati emisora** publikoak. Berria - Euskal Herria

---

emisore **1** *iz* igortzen duena.

AEBek ez zuten Kiotoko Protokoloa berretsi [...] bera izan arren gas kutsatzaileen **emisore** behinenetako bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kultur hedatze eta hartzearen gure bigarren "legea" gizarte-gorputz **emisore** batean ezarri den kultur ereduak gizarte-gorputz hartzaile batean berresteko duen joera da. Iñaki Mendiguren

2 irrati uhinen igorgailua. ik **emisora**.

Lo gelditzen direnean lepoko bat ipintzen diete, **emisore** ttipi batekin, nondik nora dabiltzan jakiteko. Gotzon Garate

Bitan banatzen zen: **emisorea**, Maddiren sehaska ondoan jartzeko, eta hargailua, gurekin eraman behar genuena. Iban Zaldua

Kontua zen, ordea, beheko irratia ingeles **emisorearekin** sintonizatuta zegoela oraindik. Josu Zabaleta

3 (izenondo gisa)

Bergara eta Azkoitia artean dagoen Elosu auzoan bizi zen, eta bere arduretako bat Loiolako Herri Irratiak Itxumendin (731 metrotan) zeukan zentro **emisorea** zaintzea zen. Pello Zabala

---

emitar *iz* antzina Palestina aldean bizi zen herri bateko kidea.

Lehenago **emitarrak** bizi ziren bertan, herri handi eta jendetsua, Anak erraldoiaren ondorengoak bezain altuera handikoa. Elizen arteko biblia

Gehienek refatartzat zeuzkaten, baina moabdarrek **emitar** deitzen zieten. Elizen arteko biblia

Hamalaugarrenean, Kedorlaomerrek, lagun zituen erregeekin joan eta refatarrak garaitu zituen Axterot-Karnaimen, zuzitarrak Hamen, **emitarrak** Xabe-Kiriataimen Elizen arteko biblia

---

emititu *(**120** agerraldi, **19** liburu eta **54** artikulutan; ETCn **3.374** agerraldi)* , emiti, emititzen **1** du *ad* igorri. (uhin elektromagnetikoak)

Hiru magnitude horiek, fluxua, intentsitatea eta luminantzia, argia **emititzen** duen objektuari dagozkio. Josu Zabaleta

Argi-fluxua gauza batek **emititzen** edo islatzen duen argi-energiaren kopurua da. Josu Zabaleta

Ondorioz, izarrak **emititzen** dituen uhinen indarra ere aldatu egiten da. Berria - Gaiak

2 (telebistaren edo irratiaren bidez)

Al Jazeerak exekuzioaren bideo zinta bat jaso, baina ez zuen **emititu** «ikusleen sentsibilitatea ez mintzeko». Berria - Mundua

Euskal Telebistak grabatu eta **emitituko** du. Berria - Kultura

Bi telebista kate pribatu eta irrati kate bat hizkuntza kurduan **emititzen** hasi ziren, atzo lehen aldiz, Turkiaren menpeko Kurdistanen. Berria - Mundua

ETB1ek inoiz **emititu** duen emankizun ikusiena. Berria - Kirola

Telebista edo irratietan **emititutako** irudi edo soinu zatiek, ezingo dute 45 segundo baino luzeagokoak izan. Berria - Harian

FMz **emititzeko** baimena lortzea da helburua. Berria - Euskal Herria

Radio City Halletik zuzenean **emititzen**. Harkaitz Cano

Jose Antonio Agirreren heriotzaren bigarren urtemugaren karietara Caracasko Eusko Deia irratiak 1962an **emitituriko** soslaia. Berria - Kultura

Gure Irratiko zuzendariak azaldu duenez, martxo hondarrean bukatuko dira lanak eta udaberrian hasi nahi dute Uztaritzetik **emititzen**. Berria - Euskal Herria

Gure Irratiak, Xiberuko Botzak eta Irulegi Irratiak lizentziarekin **emititzen** dugu. Berria - Harian

Irratia piztu, eta dialari eragin nion atzera eta aurrera, harik eta musika klasikoa bakarrik **emititzen** zuen irrati bat aurkitu nuen arte. Anjel Lertxundi

Atzerriko holandar gobernuaren irratia; Londresetik **emititzen** zuen. Josu Zabaleta

Osaba Xabierrek esan zidan Don Albertok ospea beste gauza batengatik lortu zuela batez ere, gerra bukatu ondoren Radio Parisetik **emititutako** irratsaioengatik Doctor Padre Olaso ezizenarekin. Mikel Hernandez Abaitua

1991ko gatazka hartan, AEBetako kateak Bagdadetik **emititu** ziren irudien monopolioa lortu zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Baita telebistan geuk edo kantari baten ahotik aurkeztu eta behin **emititzen** diren sorta horiek ere. Andoni Egaña

Musika bideoak ari ziren orduan **emititzen**. Joxemari Iturralde

Laringe hotsa uniformea da, eta hotsa zuzen-zuzenean, glotisak **emititzen** duen eran, atzemango bagenu, nolakotasun beti-batekoa irudituko litzaiguke. Isabel Arrigain

Ankara astelehenean hasi zen hizkuntz gutxituetan egindako saioak **emititzen**. Berria - Mundua

Ohikoena, hamarretan **emititzekoa** den saioa zortzietan grabatu eta "zuzeneko faltsua" bezala ondoren **emititzea** izaten da. Harkaitz Cano

3 (gasak eta kidekoak)

Zentral nuklearrek ez dute ozono geruzaren urritzearen erantzule den karbono dioxidoa (CO2) **emititzen**, eta askok energia nuklearraren aukeran kokatzen dute berotegi-efektuko gasen murriztea xedetzat duen Kyotoko Protokoloa betetzeko modu bakarra. Berria - Gaiak

Erregai-pilak elektrizitatea eta beroa sortzeko erabilitakoan, CO2ren emisioak %30 jaits daitezke, eta nitrogeno eta sufre oxidoak mila aldiz gutxiago **emitituko** dira. Berria - Gaiak

Beasaingo CAFek onartutakoa baino 94 aldiz zink gehiago **emititzen** du; Santurtziko zentral termikoak onartutakoa baino 300 aldiz nikel gehiago; Muskizko findegiak, onartu baino 158 aldiz sufre oxido gehiago; Lantarongo General Quimicak 14 aldiz bentzeno eta tolueno gehiago; Pasaiako Zentral Termikoak ametitu baino 60 aldiz dioxina eta furano gehiago **emititzen** du. Berria - Euskal Herria

EBren arabera, 119 enpresa horiek isurtzen edo **emititzen** dituzten gaien kantitateak herritarrek jakin beharreko modukoak dira eta Administrazioak begiratu egin behar ditu; izan ere, horien jarduera poluitzailea izan daiteke. Berria - Euskal Herria

Zer, zenbat eta nola **emititzen** edo isurtzen duen hartu behar da aintzat, baita daukan lizentziak horretarako baimena ematen dion ala ez. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edo emititzen (3); **emititzeko baimena** (3); **emititzen ari** (9); **emititzen ari diren** (5); **emititzen den** (3); **emititzen diren** (3); **emititzen du** (4); **emititzen duen** (4); **emititzen duten** (3); **emititzen edo** (3); **emititzen hasi** (3); **emititzen zuen** (3); **hutsean emititzen** (3); **zuzenean emititzen** (3)

---

emititzaile *izond* emititzen duena.

Ekipamendu hori maizter guztientzat libre dago arratsaldeko seietatik aurrera; ez dago irrati **emititzaile** debekaturik, Alemaniakoak salbuespen bidez baizik ezin entzungo diren arren, musika klasikoa eta horrelakoak entzuteko adibidez. Josu Zabaleta

---

emmerdatu, emmerda, emmerdatzen du *ad adkor* kakaztu.

Ez baduzu gaiari buruzko unibertsitateko ikasketarik egin... ebe... pittat **"emmerdatzen"** zara! Ramuntxo Etxeberri

---

emokadura *iz* gaineko geruza; estalkia.

Horrela, gaineko **emokadura** osatzen duten paper zahar eta berriak biltzen ditudan aldi bakanetan. Aingeru Epaltza

Viellasiecora heltzean, murruen **emokadura** horailak Aljeriako etxeak oroitarazten dizkit. Piarres Aintziart

Aipatzen ba ditugu **emokadurak**, orai **emokadura** guziak moda berrian egiten dira. Herria

Orai berrian ari direnentzat lana hain sailkatua da nun ez baita azkenean hargin izaitearen beharrik lanaren egiteko, ba dira enpresak beti **emokadurak** egiten dituztenak eta hori bakarrik. lehen behakoa zoan ospitaletxe zaharraren harri zaharretarat, **emokadurarik** gabe zurituak barneen argitzeko. Herria

---

emokaldi *iz* emokatzea.

Eta berriz latin **emokaldi** bat gainetik. Michel Oronoz

---

emokatu, emoka, emokatzen **1** du *ad* mukuru bete; igarotzea eragozten duela bete.

Basamortuetan, errautsez eta gatzez **emokatu** belarrez asetzen ziren ardiak. Itxaro Borda

Hagunez **emokatu** kikara ezpainetara ekartzen nuenean. Itxaro Borda

Herriko kasinoko atea ikuslez **emokatua** zen, noiz zinema aretora sartzeko baimena lortuko. Berria - Kultura

Lodikotea, moldegabea, inoxoa eta aurpegi pikorrez **emokatua**. Aingeru Epaltza

Eskuak buztinez **emokatuak**. Itxaro Borda

Kasu eskasez, eman dezagun, gasna itzul eta mindu daiteke, halaber hautsez edo harrez **emoka**. Itxaro Borda

Jantzi urratuak, izerdituak, zerrikatuak, usainduak eta zorriz **emokatuak** behin betirako baztertu zituen eta, haiekin batean, sufrimenduaren sinbolo ziren jantziak. Eneko Bidegain

Kukusoz **emokatu** lurraren gainean jarrita. Herria

Baina RN10a ere autoz **emokatua** zen Getariatik aitzina, Biriaturako norabidean. Berria - Euskal Herria

Paperezko lore handi bezain itsusiez **emokaturiko** pareten artean. Aingeru Epaltza

Eta beti erne egon behar, Itsasuko bazterrak alemanez **emokatuak** baitziren. Eneko Bidegain

Gizonak hazia barreiatu zuen emaztearen sabelpea **emokatuz**. Itxaro Borda

Eri punta guziak tinta beltzez **emokaturik**. Filipe Bidart

Ala auto bat jauzaraziz plaza jendez **emokatu** batean, ala kamikaz gaixo batek zapartaraziz berekin ekarri bonbak jendeketaren erdian. Herria

2 irud/hed

Guzia isiltasun zuriz **emokatua** zelarik, lanbro tanta ñimiñoek sistatzen zuten aurpegia. Ikusi nuenean Tjapukai Dancers-ez **emokatu** belarrietarik walkmana elki nuen eta haren ondora lehiatu nintzen alegeraki agurtzearren. Aurelia Arkotxa

Laguntza deia zintzurrean **emokatu** zitzaion. Itxaro Borda

3 emokadura egin, kareberritu.

Herriko etxeak eskola honetan lanak abiatu zituen 1981ean, garbitzen, **emokatzen**, xuriz tindatzen eta hola. Michel Oronoz

---

emole ik **emaile**.

---

emon ik **eman**.

---

emonaldi ik **emanaldi**.

---

emonkizun ik **emankizun**.

---

emonkor ik **emankor**.

---

emotibista *izond/iz* emozioei garrantzi nagusia ematen diona.

Subjetibismoari dagokionez, teoria metaetiko ezagunena **emotibista** edo ez-kognitibista deritzana da. Askoren artean

Esan dezagun, bidenabar, **emotibistek** (Stevenson-ek, zehatzago esateko) landu dutela banaketa hori. Askoren artean

Teoria honek hizkuntza morala deskriptiboa baino gehiago preskriptiboa dela onartzean **emotibistekin** bat egiten badu ere, horiei kontrajarriz, judizio etikoei buruzko arrazoiketa egitea etikaren funtsezko jarduna dela aldarrikatzen du. Askoren artean

---

emotibitate *iz* emotiboa denaren nolakotasuna.

Gertatzen dena zera da: askotan, emakumeak ez direla horretara bultzatu eta gizonezko askori **emotibitatearen** alde aberatsa galarazi egin zaiela. Ana Urkiza

Ni umetatik izan naiz **emotibitate** handiko pertsona, eta kezka edo gustu intelektualek plazer handia eman didate. Ana Urkiza

Zergatik **emotibitatea** emakumeena? Ana Urkiza

---

emotibo *iz* emozioari edo emozioei dagokiena; emozioa eragiten duena.

Lizentzia estilistiko batzuk hartu zituen zuzendariak, baina betiere musikaren karga **emotiboaren** zerbitzura. Berria - Kultura

Azkenean,«lan **emotiboa** » egin du. Berria - Kultura

«Herrien estetika **emotiboa** eta antzerkiaren estetika» uztartu nahi izan ditu ikuskizunean: «Zentzumenentzako antzerkia da, eta artearen eredu kartesiarretik urruti dago». Berria - Kultura

Hoonek Madrilek erabilitako «hizkera **emotiboa** » gaitzetsi zuen herenegun, Gibraltarrera heltzean. Berria - Mundua

---

emotiboki *adlag* emozioen aldetik.

Ez, ez da elementu **emotiboki** neutroa: ulergarria zen Kerrn haren moduko goi-irakasle batek, erdia biokimikari eta beste erdia azti izaki, nazien Gorteko giro berezi hartan, zeinean magia beltza nagusi baitzebilen, medicamentumtzat izendatzea. Juan Garzia

---

emoxionatu, emoxiona, emoxionatzen da/du *ad adkor* emozionatu.

Izan daiteke astrologiak edo zernahi terapia batek kexelebretua; edo flipa-errexa eta edozer guaikeria, hutxalkeria edo umekeria gatzbakorekin izugarri **emoxionatzen** dena ("uaaa! ooona! latza! totala, e?"). Iñaki Segurola

---

emozio *(ETCn **11.827** agerraldi; orobat **emozione** g.er.)* **1** *iz* barne asaldua, sentimen, oroitzapen, grina edo kideko batek eragina, zurbiltze edo gorritzea, bihotz taupaden lastertzea, ikara edo bestelako ondorio nabariren bat dakarrena. ik **zirrara**.

Emozio kontzeptua, eguneroko hizkuntzan "sentimenaren" edo "grinaren" antzekotzat hartu ohi dena, oso ongi definitu behar da: "sentimena" eta "grina" afektuaren "sekundarizazioak" dira, afektua dagoeneko irudikapen sail batean nahasten dutenak; **emozioa**, berriz, "primarioagoa" da hori baino, eta esanahi jakinik gabe bizi izaten da askotan. Josu Zabaleta

Maitasuna sentimendua da, **emozioa**, desioa. Luis Elberdin

Gehienbat ugalketari eta gizarte-bizitzari loturik doazen **emozioak** : tristura, maitasuna, desira, arbuioa. Josu Zabaleta

Orain badakigu sentipen eta **emozioak** urdailean izaten direla, janaritik bilakatuak isurkin gastrikoen eragin kimikoaz. Xabier Olarra

Baliteke ni traketsa izatea **emozioak** -eta adierazterakoan. Joxe Austin Arrieta

Normalki **emozioak** beste gogo-egoera "seguruago" batzuetara murriztu izan dira, esan nahi baita, jarrera proposizionaletara. Askoren artean

Kortexa da, batez ere, ikasteaz, oroimenaz, **emozioez** eta pentsamendu abstraktuaz arduratzen den garun atala. Irene Aldasoro

"Hemen da, hemen da!", oihukatu dute aurrean doazenek, sekretu miragarria urratzen duenaren **emozio** eta harriduraz. Xabier Mendiguren Elizegi

Kezka bat nuen hala ere: idazten ari nintzenak motz islatzen ote zituen Goetheplatzen bizi izandako **emozioak** . Anjel Lertxundi

Pinturaren helburua **emozioa** da, eta ustekabeak sortzen du **emozio** hori. Josu Zabaleta

Amurizak bazekien ezin zuela bi silabon aipamen hutsez entzuleengan **emoziorik** eragin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ingurukoen erreakzioa interesatzen zait, erreakzio axolagabea, ezer gertatuko ez balitz bezala, inongo **emoziorik** erakusten ez duten jarrera hotzak dira. Berria - Kultura

Une historiko haren partaide izateak sorrarazten zien **emozioa** , eta bertsoak **emozio** hori katalizatu, bideratu baino ez zuen egin behar. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hitz indartsuok esanagatik, Joyce negarrez hasi zen geroxeago, bat-batean nahigabeturik, ezagutzen nuenetik lehenbiziko aldiz bere **emozioen** kontrola galdurik. Oskar Arana

Ezin duzu aurkikuntzaren **emozioa** imajinatu ere egin. Berria - Harian

Testu batek hartzailearengan nola edo halako **emozioren** bat sortuko badu, poetikoki landua behar du, nahitaez, testu horrek. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gauza bat da mina ezagutarazten duen gorputz fenomenoa, eta beste bat, erabat bestelakoa, **emozioa** espresatzen duen fenomeno artistikoa. Askoren artean

Fikziozko mundu batean [...] pertsonaiekiko harremanek edota egoera batzuei aurre egin beharrak eragiten du **emozioa** . Josu Zabaleta

Bertsolariak entzuleengan **emozioa** pizteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kalera begiratu zuen, bere **emozioa** pixka bat bare zedin. Irene Aldasoro

Emozioari eutsi ezinda. Berria - Euskal Herria

Eztarria **emozioak** estututa, eskuak amorruz ukabilduak. Joseba Zulaika

Emozioari eutsi ezinda. Berria - Euskal Herria

Eskuak gerriaren atzean lotuak, begirada zerumugarantz, ahotsa **emozioagatik** etena. Karlos Linazasoro

Hartaz Templek berak ematen duen azalpena mekanikoa da huts-hutsik: "Konektatu gabe daude **emozioaren** zirkuituak: hori da okerra". Xabier Olarra

Horrelakoetan **emozioaren** blokeoa gertatzen da. Josu Zabaleta

Ikuslea ere subjektu bat da, ordea: bere afektuen, bere bulkaden, bere **emozioen** mende dago. Josu Zabaleta

Emozioen zirrara kontrolatu ezinean, nerbioak jota zaude. Rafa Egiguren

Emozioen mundura ekarri nahi nuke begirada, hor baitago, ene ustez, datorkigunari begiratzeko aukera bat: kultura batean -hitzarenean- zein bestean -zenbakiarenean- gauzak ulertzen saiatzetik eta adimenaren eremuetatik datozen **emozioengan** sinestearena. Anjel Lertxundi

Freudek zioen gure **emozioen** arabera gogoratzen dugula edo ahazten dugula. Berria - Gaiak

Azkenean **emozioa** gailendu zitzaion Héracliusi, negar malkoak atera zitzaizkion begietatik, besoak zabaldu zituen, eta elkar besarkatu zuten. Josu Zabaleta

Autobusean zihoazela ikusten zituen eraikin eta leku guztiak ezagutzen zituen, eta **emozioz** esaten zituen haien izenak ozenki. Xabier Olarra

Han bilduek, izan ere, ez zuten testu bikainen beharrik **emozioz** gainezka egiteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Pertzepzio, oroitzapen eta irudi nabarmendu eta **emozioz** kargatuak. Xabier Olarra

Ama **emozioz** negarrez zegoen ia. Josu Landa

Ni oraindik **emoziorako** gauza naiz; zuengan, bitartean, **emozioa** ezinezkoa da, hil egin duzue **emozioa** , hitz zaparrada baten pean ehortzi duzue, milaka tona sintagma gainetik ezin kendurik dabilen gaixoa da, zuengan, **emozioa** ; gehienez ere **emozioaren** planta tristeak egiten dituzue, simulakro hitsak, itxura patetikoak, antzezpen penagarriak. Jon Alonso

Hura **emozioa** ! Irene Aldasoro

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Emozio sinple, bortitz eta unibertsalak senti omen zitzakeen, baina jendearen jokabideko zirrara eta joko konplexuagoek txunditu egiten zuten. Xabier Olarra

Emozio berriak agindu zaizkien ludopata aspertuak besterik ez ziren gehienak. Harkaitz Cano

Emozio handiko mementoa, denek betan kantatzen dugularik bakotxak bere hitzkuntzan Lurdeko Ave Maria. Herria

Hor kokatzen dira **emozio** primitiboak -gosea, beldurra, atsegina, sexu-irrika-, banakoa nahiz espeziea arriskutik babesten dutenak. Irene Aldasoro

Idazle handienek sentitzen dituzten **emozio** eta sentimendu berdintsuez idatzi zuen Hitlerrek *Mein Kampf*. Anjel Lertxundi

Kantu eta bertso zatiak jaulkitzen zitzaizkion behin eta berriz, eta komentario "ergelak" egiten zituen, **emozio** sakonik azaldu gabe ezertaz. Xabier Olarra

Emozio "bortitzak", bizirik irauteari dagozkionak, zenbaitetan estresetik urruti ez daudenak. Josu Zabaleta

Ideia falta larria eta sentipen eta **emozio** elementalak baizik ez zituen herri basa. Xabier Olarra

Baina ez nintzen ziur, bere modu autistan, batere **emozio** pertsonalik ote zuen ere. Xabier Olarra

Gutxitxo dakigu koloreari loturiko **emozio** eta plazer estetikoaz. Xabier Olarra

Ez baitzen itsutzen jende arruntaren eguneroko **emozioekin**. Xabier Olarra

Ordu arte inoiz harrapatu ninduen desirazko **emoziorik** gogorrenak jorik geratu nintzen. Josu Zabaleta

Metraila zatiek eragindako lesio bat zuen lobulu frontaletan, eta, ondorioz, ez zuen sentitzen inolako **emoziorik**. Xabier Olarra

Andresek berebiziko **emozioz** jarraitu zituen gerrarako prestamenak. Josu Zabaleta

Ikasturtea amaitu eta agur esatean, sekulako **emozioa** sentitu genuen. Josu Zabaleta

Arazoa sentimendu edo sen moralaren, barruak aginduaren, kontzientziako **emozioen** mailan jartzeak ez digu ezer laguntzen ekintza justu eta injustuaren kriterioak markatzeko. Joxe Azurmendi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)ik **emozional**.

Irudiek **emozio** prozesu burutu gabeak eragiten dituzte ia beti. Josu Zabaleta

Emozio-adierazpen horiek ez dute egia-baliorik adierazten. Askoren artean

Halabeharrak bereizi zituen, eta biak batzen zituen **emozio** loturarik ez zen haien artean. Elena Touyarou

Konfiantza harrigarria eta ildo nagusietarako argitasuna erakusten zituen, eta **emozio**-indar bitxi eta ilun bat. Xabier Olarra

Bistan dago hiriari gainera etorri zitzaizkion zoritxar horietatik guztietatik onik atera zela jaia, sentipen eta **emozio** iturri iraunkor eta agertezin bezala. Askoren artean

Bestela itxita dagoen **emozio**-mundu baterako atea zabaltzen omen dio makinak, eta haienganako enpatia sentitzen uzten. Xabier Olarra

Emozio-premia sakon baten ondorioz ekarrarazten ote zituen amets eta irudi haiek? Xabier Olarra

Izumenez betetzen da gogoeta, bizitzaren **emozio**-antzutasunaren ordezkagarri. Josu Zabaleta

Bai Gregoryk eta bai Valvok aipatu izan dituzte itsuak zentzumen berri batez baliatzera behartzearen **emozio**-arriskuak. Xabier Olarra

Irudien **emozio**-balioa, berriz, oso gutxi aztertzen da. Josu Zabaleta

Ikusmen-itxiera oso bestelako bat, berriz, atzerakada, **emozio**-estres handiarekin edo gatazkekin bide zegoen loturik. Xabier Olarra

Horretaz gainera, zenbait **emozio**-egoeraren arabera ere, berez aldatzen da begi-niniaren tamaina. Josu Zabaleta

Emozio-esperientzia asegarriak. Josu Zabaleta

Emozio ziklo osatu gabea, edo gezurrez osatua, bizi izanaren sentimena. Josu Zabaleta

Gure arteko zenbatek ez du askotan bere burua aitortu ezin diren **emozio**-uhin horien mendean sentitu? Joxan Elosegi

Atxikimendu esaten duzun hori, ez ote da **emozio** menpekotasuna? Berria - Euskal Herria

4 ***emoziozko*** *izond* ik **emotibo**.

Emoziozko babes edo afektibitate falta handia izaten dute gehienek. Berria - Euskal Herria

Egiazko lieraturak, sexuen edo beste edozein zirkunstantziaren gainetik, arimaren zolan edo dena delako barrunbe horretan sorrarazten dakien **emoziozko** dardara hori eragiten dizuna. Berria - Kultura

Gero Mael ontzira igo zen atzera begiratu gabe, **emoziozko** malkoren bat ezkutatuz segur aski. Joanes Urkixo

Emoziozko edukirik gabeko presentzia bat. Xabier Olarra

Baina inoiz ez du azpimarratu gabe utzi ezagutzazko une horien garrantzia, **emoziozko** uneak, edo subjektiboak (psikoanalisiaren zentzuan) alde batera utzirik. Josu Zabaleta

Aldi berean, ordea, **emoziozko** erantzunak eta lotura gizatiarrak axalekoak edo ohitura hutsekoak dira harengan. Xabier Olarra

Funtzionario paganoa eta Elizako Guraso kristaua elkartuta daude beren **emoziozko** erreakzioetan. Iñaki Mendiguren

Gizartearekin eguneroko harremanetan eta **emoziozko** harremanetan dituzte gabezia nagusiak etorkinek. Berria - Euskal Herria

Poetaren izaera ez da razionala, **emoziozkoa** baizik. Askoren artean

Egin diren esperimentuetan aiseago atzematen, ezagutzen eta izendatzen da, aiseago lotzen da balio semantikoekin, estetikoekin eta **emoziozkoekin**. Josu Zabaleta

Bere izate **emoziozkoaren** barometroak denboraldi istilutsua iragartzen zuen. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino emozio (3); **bere emozio** (3); **bere emozioak** (7); **da emozio** (3); **du emozioa** (4); **duen emozioa** (3); **duten emozio** (4); **emozio apur** (3); **emozio bat** (6); **emozio egoera** (3); **emozio eta** (17); **emozio eta sentimendu** (3); **emozio guztiak** (3); **emozio haiek** (3); **emozio handi** (3); **emozio handia** (6); **emozio handiagoa** (5); **emozio handiko** (8); **emozio handikoa** (3); **emozio hori** (5); **emozio horiek** (5); **emozio pixka** (5); **emozio pixka bat** (3); **emozioa adierazten** (4); **emozioa da** (3); **emozioa eta** (13); **emozioa ez** (5); **emozioa izan** (4); **emozioa izan zuen** (3); **emozioak adierazteko** (3); **emozioak eta** (14); **emozioak ez** (3); **emozioak jota** (3); **emozioak sorraraztea** (4); **emozioaren emozioz** (3); **emozioaren emozioz** (3); **emozioaren espresioa** (3); **emozioaren eta** (3); **emozioen eta** (3); **emozioez eta** (3); **emozioren bat** (3); **emoziorik ez** (5); **emoziorik gabe** (4); **emozioz betea** (4); **emozioz beterik** (3); **emozioz beteriko** (4); **emozioz beterikoa** (6); **emozioz betetako** (3); **emozioz eta** (4); **entzuleengan emozioa** (3); **eta emozio** (29); **eta emozioa** (22); **eta emozioak** (18); **eta emozioaren** (7); **eta emozioen** (7); **eta emozioz** (12); **eta emozioz beterikoa** (4); **inolako emoziorik** (5); **nire emozioa** (3); **partidan emozioa** (3); **sentimenduak eta emozioak** (3); **zuen emozio** (4)

---

emoziobide *iz* emoziorako bidea.

Bizipen partekatu hori izan ohi dute horrelako bertsoek bere **emoziobide** nagusi. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

emozional *izond* emozioararena, emozioena edo horiei dagokiena.

Erabat desberdinak dira beste marrazkien aldean -enkarguzkoen aldean, alegia-, barne-biziaren eta amets eta premien adierazpen baitira, bere nortasun **emozional** eta pertsonalarenak. Xabier Olarra

Egonkortasun **emozionala**, lan eta ekonomi mailakoa, psikologikoa, etab. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erabateko ongizate fisiko, mental, **emozional** eta espirituala, eta etengabeko oreka gizakion bizitza osoan. Berria - Gaiak

Prest zaude edozein desoreka **emozional** eta psikologikori aurre egiteko. irakasleek parte-hartze garrantzitsua dute beti: ez ohi dute gazteek gurasoekin duten harreman **emozional** estu hori eta protagonismo handiagoa har dezakete. Rafa Egiguren

Ondoren rock gordin eta **emozionalaren** monumentu bat eraiki zuen Thalia Zedekekin elkarlanean: *Come*. *Berria - Kultura*

Irakurlearekin konpromiso **emozional** eta intelektuala zuen Brodkeyk. Berria - Kultura

Eugenio Gabilondo ez du askorik gogoratu hiriko kultura sentimental eta **emozionalak**, nahiz eta hark Donostiako aisialdi, jai eta kulturako jarduera guztietan gogo biziz parte hartu. Askoren artean

Deserrotze fisiko eta **emozionala** kantugai bihurtu. Berria - Kultura

Horri esker auzibideak murriztu egiten dira eta, ondorioz, gatazkek eragin ohi duten kostu sozial eta **emozional** larria baretzea lortu dugu. Berria - Euskal Herria

Hark baldintza objetibo eta **emozional** guztiak betetzen zituen, hau da, nire neurosiari hitz egiten zion zuzenean. Karlos Zabala

Memoria kolektiboan finkatuena dagoen erreferente **emozional** eta sentimenduzkoaren eraikitzailea. gai naiz denbora hori irakurtzeko, haren konnotazio **emozionalak** sentitzeko eta, areago, argazki oso adierazgarri batzuk ikusirik, konnotazio horiek berriro bizi izateko.Ez duzu behar bezalako sintonia **emozionalik** lortzen, eta sexu-jarduera

zentzurik gabeko kamasutra bihurtzen da, gimnasia sexual hutsa. Askoren artean

Itxura hutsa ez den hoztasun batez emandako besarkada batek itxura hutsa ez den erreakzio **emozional** bat eragin dezake. Anjel Lertxundi

Antisemitismoaren mamua aireratu eta munduari xantaia **emozionala** egiten dio. Berria - Mundua

Bizipen **emozionalari** sostengu arrazionala eman beharrean aurkitu naiz. Ana Urkiza

Unión Artesana ez da soilik Danborradaren suspertzaile izan; hiriko egutegi **emozional** eta sentimentaleko jai seinalatuenen aitzindari izan da. Askoren artean

Badirudi zulo **emozionaletik** gora egin duela. Patxi Iturritegi

Sekula baino gehiago hitz egiten da inteligentzia **emozionalaz**, premia dagoelako. Ana Urkiza

Semantikan adituek badute zer azterturik hizkera ekonomikoan, non terminologia **emozionala** den nagusi. Iñaki Heras

Zelotearen *ethos* berezia **emozionala** eta intuitiboa da, baina politika hori egin daiteke hotz-hotzean oinarri arrazionalen arabera. Iñaki Mendiguren

Gizonezkoek diskurtso intelektuala garatzen dutela esango zenuke eta emakumezkoek **emozionala**? Ana Urkiza

Oro har, bustiago edo kutsatuago daukagu alderdi intelektuala **emozionalarekin**. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bizitza emozional (3); **emozional eta** (17); **emozionala eta** (4); **eta emozional** (3); **eta emozionala** (5); **eta emozionalak** (4); **xantaia emozionala** (3)

---

emozionalitate *iz* emozioa sentitzeko ahalmena.

Pinturatik musikara salto egin dut, nire margotzeko eraren zenbait ezaugarri nagusi, bat-batekotasuna, **emozionalitatea**, gordez eta aldi berean arte bisualen totalitarismoa baztertuz. Berria - Kultura

---

emozionalki *adlag* emozioen aldetik.

Banatu berri dena **emozionalki** gaizki egotea normala da. Berria - Euskal Herria

Psikologikoki eta **emozionalki** ere kalte handiak eragin dizkidate espetxean. Berria - Euskal Herria

Emozionalki engaiatzearen arriskuak. Berria - Kultura

Ez dakit! erantzuten dute askotan, ez zeudelako **emozionalki** sartuta ematen ari zirenarekin. Berria - Gaiak

Emozionalki maite dugu, eta bizirik ikusi nahi dugu eta ez dugu, beraz, hitz egin nahi iraganeko pertsona gisa. Berria - Mundua

Fede bat eta bere kontrarioa ber denboran edukitzea, Unamuno-ren betikoa izan dela ematen du: Madril-en estudiantetako positibismo filosofikoaren aro itsuenean, **emozionalki** Wordsworth, Coleridge edo Leopardi-ren poesia da bete-betetzen duena. Joxe Azurmendi

Egoera subjektibo batzuetan joera handiagoa izaten da besteetan baino **emozionalki** filmean sartzeko. Josu Zabaleta

Gizarte-ikuspegitik, aro heroikoa zorakeria eta krimena da, baina **emozionalki** esperientzia handia da. Iñaki Mendiguren

Elbarritasuna oso erlatiboa da, bestela ere gu **emozionalki** nahiko ezinduak baikara Berria - Kultura

---

emozionante *izond* emozioa eragiten duena. ik **zirraragarri**.

-Emozionantea zegok kontua. Xabier Etxabe

Jexuxentzat egun **emozionantea** izan zen, Piok Jexux aukeratu baitzuen bere ordez Felixarekin ezkontzeko, eta horrek ilusioz bete zuen. Xabier Etxabe

---

emozionatu, emoziona(tu), emozionatzen da/du *ad* emozioa sentitu.

Idazlearen nahia une bat jasotzea eta pertsonaien bidez irakurlea **emozionatzea** da. Pako Aristi

Horrelako bertsoekin **emozionatzen** direla diotenak planta egiten ari dira, ezinezkoa baita horrelako memelokeriekin **emozionatzea**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

emozione ik **emozio**.

---

empirismo ik **enpirismo**.

---

emulatu, emula, emulatzen du *ad* norbait edo zerbait imitatu, hura berdintzen edo gainditzen saiatuz.

Beharbada oraingo emakumeek gizonezkoak bezalakoak izan nahi dute, gizonen Don Juan fama **emulatu** nahi dute, oraingo emakume asko idiotak sentitzen dira fidelak baldin badira. Mikel Hernandez Abaitua

---

emulazino ik **emulazio**.

---

emulazio *(orobat **emulazino** g.er.) iz* emulatzea.

Afektuen imitazio hori, Tristurari doakionean, Gupida deitzen da [...]; baina Desirari doakionean, **Emulazioa** deritza. Piarres Xarriton

Ez dugu hori erraten badakigulako imitazioaren kausa eta **emulazioarena** ez direla berdinak. Piarres Xarriton

Kirurgia-lana hain nabarmenki erraza izateak [...] ez zuen, beharko zukeen bezala, izu-laborririk sortu, **emulazioa** baizik. Xabier Olarra

Gu geu ere animatzen ginen, noizbehinka, goikoen **emulazioan**; **emulazio** isilean, erants dezadan, eta ez lehia zaratatsuan, sexuaren alorrean tolerantziaren aldekoak izan arren pertsona diskretuak baikara Aloña eta biok. Xabier Mendiguren Elizegi

Geroago, iritzi eta izaera ezberdinengatik, **emulazioagatik** edo inbidiagatik, (gauza horiengatik liskartzen baitira normalean gizonak), zatitu egingo dira berriro eta ez dute nahi izango ez elkarrekin jarduterik, ez bakerik. Esteban Antxustegi

---

emulo *iz* norbait emulatzen saiatzen den pertsona.

Beste batek eskua erre duela ikustearekin, berak eskua erre balu bezala, bere eskua gibelatzen duenak eta bera aldaratzen denak, halakoak, beste baten afektua imitatzen duela erraten dugu, bai, baina ez beste haren lehiakide edo **emulo** dela. Piarres Xarriton

emultsio **1** *iz* nahasten ez diren bi isurkariz osaturiko isurkaria, bi horietako bat tanta txiki-txikiez osatua dena.

Emultsio bat izan ohi da ukendua: droga bat izaten du ingurune koipetsu edo ezkotsu batean sakabanatuta. Irene Aldasoro

Agirregabiria elektroforesia eremu elektrikoaren eraginez soluzio edo **emultsio** bateko partikulak higitzea egiteko txip bat garatzen ari da Arrasateko enpresan. Berria - Gaiak

2 argazki pelikulak geruza gisa duen gai kimikoa, gelatinarekin emultsionaturiko zilar gatz batek osatua.

Orduan konturatu zen zinten **emultsioak** itsatsiak, kolatuak, geratu zirela eta bideo aparatuek ezin zituztela jiratu. Berria - Kultura

Beste guztiak berdin errugabe sentitzen zituan: lehengaiak ontzat eman zituztenak, zilar bromurozko **emultsioa** prestatu eta berrikuskatu zutenak, xaflak paketetan sartu, bilgoak lotu eta biltegian pilatu zituztenak. Juan Garzia

Argazkilariek ondo ezagutzen dute egoera hori, filmaren **emultsioak** ez baitu xurgatzen hara iristen den argiaren kantitate txiki bat baino. Irene Aldasoro

Erantsirik zekarren erradiografia egiaztagarri bat: tira, balekoa pikorraren aldetik (barka hizjokoa: **emultsioaren** pikorraz ari nauk orain) eta kontrastearen aldetik, baina orbantxo zuri, luzanga, babarrun baten tamainakoz josirik. Juan Garzia

3 (izenondoekin)

Horiek prestatu zioten bere erakustaldi ikusgarrienerako bidea, 1861ean erakutsi baitzuen koloretako argazkiak egin zitezkeela, nahiz eta **emultsio** fotografikoa bera zuri-beltzeko argazkietarakoa izan. Xabier Olarra

Arrisku bat dago: **emultsio** sentikorrean zehar igarotzean baliatu ez den argiaren parte bat, zeluloidearen oinarriak islaturik edo barreiaturik, geruza sentikorretara irits daiteke atzera. Irene Aldasoro

---

emultsionagailu *iz* emultsionatzen duen gailua.

Emultsionagailuak, izozturiko elikagaiak pure edo krema bihurtzen ditu, desizozteke, sukaldari presatiak itxoin gabe: segundo gutxiren buruan pronto izango du krema, betegarria, salda- edo barazki-hondoa, izozki edo sorbetea, bere lurrin eta guzti. Edorta Agirre

---

emultsionatu, emulsiona, emultsionatzen du *ad* gai bat, eskuarki gai koipetsu bat, emultsio bihurtu.

Etxean ditugun garbitzeko xaboi-hautsek bezala, elikagaietako olioak eta gantzak **emultsionatu** egiten dituzte behazun-gatzek; tanta txikitan apurtzen dituzte, eta nahiko ondo nahasten dira tantok ingurune urtsuarekin. Irene Aldasoro

Thermomixa jeneralizatuko da, pixkanaka: osagaiak birrindu, xehatu, irabiatu, nahasi, jo edota **emultsionatzeko** aukeraz gainera, jakiak berotu edo egosi ahal izango dira bertan, aparatuak programatzeko aukera emango duelako. Edorta Agirre

---

enajenazio *iz* pertsona batek batek arrazoimena edo zentzumena galtzea.

Ahultasun uneren batean emakume hauetako bat bizkarretik eraso eta -bere ahuldadeaz ere jakitun- bere bizitza gurearekin lot zezan eskatzeko tentazioan erortzea ez zen zaila, metroko eskaileratako zurrunbilotik atera eta parez pare itsutzen gaituen eguzkiak sortutako **enajenazioaren** pean. Harkaitz Cano

---

enamoratu, enamora, enamoratzen **1** da *ad* maitemindu.

Herminio berezia zen, nire lehenengo bezeroa, eta uste dut ikusi orduko **enamoratu** nintzela. Jasone Osoro

Enamoratu zara, horra zer duzun. Matías Múgica

Eta hizketan eta hizketan egin genian... Gauerako seko **enamoratuta** geundean biok. Josu Zabaleta

Enamoraturik al zaude? Eskarne Mujika

Lamelaren ezkutuko sekretua **enamoratuta** egotea zen, baina egiaz **enamoratuta**, aristokraziako emakume batez. Josu Zabaleta

Nirekin **enamoraturik** dago, horregatik ekarri ninduen hona. Bernardo Atxaga

Silveriok Sirena maite du, Sirenak, ordea, Dorido, eta Doridok Silvia, baina, Silvia Silveriorekin dago **enamoratua**. Berria - Harian

Ai, alabatxu, ezkondu zaitez berarekin, ez al duzu ikusten benetan zurekin **enamoratuta** dagoela? Sonia Gonzalez

Hori gehiago dago **enamoratuta** bere buruarekin zurekin baino. Joxemari Iturralde

Imajinatu ere ezin zitekeen egin bi emakume desioz beteak, elkarrekin **enamoratuak**. Luis Elberdin

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Ilargia atera gabea zen artean, eta horrek salbatu zuen bidelapur **enamoratua**. Koro Navarro

Ikasle **Enamoratuaren** kasua. Joxemari Iturralde

Barrea eragin zion Lucyri bikote **enamoratuen** anekdotak. Joxemari Iturralde

Gregoriyo hori, arrantxero izateko bakarrik balio zuena, nire **enamoratuaren** aita omen zen. Bernardo Atxaga

Inoiz ez nuen ordu arte sospetxatu zenbateko ezina senti dezakeen **enamoratu** batek. Matías Múgica

Emakumeen sen zierto horrekin, istanteko igartzen baitiote beren **enamoratuen** beldur eta ahuleziari. Matías Múgica

3 (gauzez mintzatuz)

Haren ahoaz **enamoratua** nintzen, adiskideak, haren ahoaz! Matías Múgica

Aspaldi ase baitzituen gaixoak, amodio jolasak eta bizi grinak, eta hauts **enamoratuaren** muintegi gordean, amodio hazia mamituxe zaio gaurgero. Patziku Perurena

---

enano *iz* ipotxa.

Ostia pare bat emango nizuke, **enano** mentala. Karlos Linazasoro

---

enara **1** *iz* paseko txoria, gure lurraldeetan udaberria eta uda ematen dituena, gaina ilun kolorea, azpia zuria, isatsa sarde modukoa eta hegoak meharrak eta luzeak dituena *(Hirundo rustica)*. ik **elai**.

Gauza jakina da apiril erdi aldera itzultzen dela **enara** gurera, negua hegoaldean igaro ondoren. Imanol Zurutuza

Rayk esan zuen birigarroak eta **enarak** eta hegazabalak zebiltzala gure gainetik hegan. Koro Navarro

Horregatik **enara** bat edo beste dabilenean, gure aurrekoek ondotxo zekiten, uda urruti zebilela. Pello Zabala

Enarak etortzen diren garaian galtzen dituzte tulipek petaloak. Imanol Zurutuza

Nora joan zaizkizu **enaren** hegadak? Hasier Etxeberria

Enara batek hegaldi laburra egin zuen etxearen teilatupeko habia ezkututik eltxoren baten bila, gero berriro habiara itzultzeko. Anjel Lertxundi

Enara bakar batek urtero hamar milioi eltxo irensten omen ditu. Xabier Olarra

Senez joaten zen, **enarek** hegora edo alkatxofek eguzkitara jotzen duten bezala. Anton Garikano

Akorduan dut **enarak** zebiltzala uda hasierako aire gardenean gezien moduan. Joseba Sarrionandia

Enarek biribilak egiten zituzten airean, garrasika. Josu Zabaleta

Gertatu zen gizonek ehizatu eta jan egiten zituztela gainerako txori eta hegaztiak, baina **enarak**, beren babespean hartua baitzuten, haien etxeetan egiten zuela habia, beldurrik gabe. Imanol Zurutuza

Enara habe goren batean dago pausatuta. Mirentxu Larrañaga

Enara listo dago habiak lokatzez egin eta kumak ateratzeko. Pello Zabala

Enara txioka bezala ari naiz intzirika, usoa urrumaka bezala. Elizen arteko biblia

San Frantzisko predikatzen hasi zen, eta aurrena txirtxirrika ari ziren **enarei** agindu zien berak predikatu bitartean isilik egoteko. Askoren artean

Izokinak gure ibaietan gora edo **enarak** habiara xuxen gidatzen dituena bezalako indar bat. Juan Garzia

Enarak baitira hil diren umetxoen espirituak. Julen Gabiria

1970. eta 1990. urteen artean behera egin zuen **enaren** populazioak. Berria - Gaiak

2 (izenondoekin)

Enara arreak ziren, sendokote indartsuak, ez ipurtxuriak, baina hemen genituen, negu gogor hotz baten ostean. Pello Zabala

Enara arre grix horiek, berriz, apenas alde egiten duten denek inguru hauetatik neguan bertan ere. Pello Zabala

Betetasun zantzu hunkigarria beti **enara** goiztarrena. Txillardegi

Enara ipurtxuriak auskalo zenbat multzo eta saldo osatzen dituzten Arantzazun bertan. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eguzkia goian da, begi zorrotz, **enara** saldo bat badoa eta badator. Jon Alonso

Han zuen **enara** bikoteak bere habiatxo mimoz eta moko-kolpe askoz, lokatz busti goxoz buztinetan osatua. Pello Zabala

Bi **enara** bikotek ekarritako hegada berezia. Pello Zabala

4

Aireplanoak herri gainean jirabiraka, burdinazko **enara** erraldoiak, ilunak, astiro, ozen, eta kanpai hotsak egundokoak baino larriagoak. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bi enara (3); **enara batek** (3); **enara eta** (4); **enarak eta** (3); **enarak etorri** (9); **enarak etorri garaiez** (3); **eta enarak** (6)

---

enaratxo *iz adkor* enara.

Enaratxoek zapa samarrean, azpitik ikusten zituenean beldur punttu bat igotzen zitzaion gure aurreko aitona edo amonari. Pello Zabala

Hau dena **enaratxoei** buruz gure aurrekoengandik bildua. Pello Zabala

---

enas 1 *izond* txukuntasunik gabea, zikina, lohia.

Neska **enas** bat etorri zitzaion zerbitzatzera. Irene Aldasoro

Zerbitzari **enasari** bi penikekoa eta penike-erdikoa ordaindu eta tabernatik irten zen bere alderrai-aldiari berrekitera. Irene Aldasoro

Gizon **enasa** zen; gauzak erortzen zitzaizkion berokira; munduan zereginik gabeko agure baten asperdura zeukan; eta emazteak gelatik bidali zuen. Anton Garikano

Baina **enasa** zen, eta traketsa, ogia eta gazta jaten. Anton Garikano

2 irud/hed

Unamuno-ren kasuan susmoa du, haren izpiritualismo eta mistizismo guztiak funtsezko materialismo **enas** bat disimulatzen duela (beharbada Ortega-k a priori deus izpiritualtarako ezindutzat zeukalako euskal arraza). Joxe Azurmendi

---

enaskeria *iz* txukuntasun gabezia gaitzesgarria; zikinkeria.

Koadro modernoak ere, gure aitarentzat, **enaskeria** eta zerrikeria ziren, ezin zituen jasan. Fernando Rey

Ingalaterran *table d'hôte* batera joanen bazinete, segituan botako zintuzketete **enaskeriak** egiteagatik. Fernando Rey

---

enbajada ik **enbaxada**.

---

enbajadore ik **enbaxadore**.

---

enbalaje *iz* bilgarria jartzea; enbalatzeko erabiltzen den bilgarria.

Indarlanek poliespan xaflak egiten ditu hozkailuen **enbalajerako**. Berria - Ekonomia

OL iritsi zenetik han zegoen kutxa ikusi, **enbalajea** kendu, eta barruan zegoena apaletan ordenatzea erabaki zuen. Jon Muñoz

Gizontxoak eskuak longainaren hegalean gurutzatuta zeuzkan, hotz; aurrera zegien **enbalaje**-kutxen artetik, baita alde batetik bestera korrika zebiltzan umeen artetik ere. Lopez de Arana

Kartoi pusketa arrunt bat aurkitu nuen barruan, **enbalajekoa**. Bernardo Atxaga

Enbalajezko kutxa bat bere eltze, zartagi, labana eta sardeekin. Koro Navarro

---

enbalatu, enbala, enbalatzen du *ad* zerbait, garraioan-edo honda ez dadin, paketatu edo kaxa batean sartu.

Baina arratsaldean, estudiotik itzuli zenean, **enbalaturik** ikusi zuen, Oteizaren eskultura pisutsu baten ondoan. Patxi Iturritegi

Enbalatzeko papera erosi eta mekano-apalak forratu ditut. Harkaitz Cano

Baina arratsaldean, estudiotik itzuli zenean, **enbalaturik** ikusi zuen, Oteizaren eskultura pisutsu baten ondoan. Patxi Iturritegi

Lupin maisua agertu zen, **enbalatzeko** kaxa handi bat zekarrela. Iñaki Mendiguren

---

enbalde *adlag* alferrik.

Baldin, baldin, baldin... **enbalde**! Sonia Gonzalez

enbalditu, enbaldi, enbaditzen **1** da/du *ad ipar* elbarritu, hebaindu.

Ixtripu baten ondotik **enbalditurik** bizi da. Herria

Creton legearen menpean, hogei urteak beteak dituzten larogeitabost gazte, **enbalditu** haurren arta etxetan atxikiak direnak; lehen bai lehen helduen arta etxetan ezarri behar ditugu. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Baionako besten kari haurren egunean, haur **enbaldituen** ongi etorria antolatua da espresuki. Herria

Haur eta gazte **enbaldituen** artatzen aritzen da. Herria

Berak, bere bizia ospitale hortan nahi bazuen, jende xume **enbaldituen**, biziak kolpatuen errespetuz zela. Michel Oronoz

Enbaldituek ez dute horra sartzerik, kanpoko eskaleren gatik eta barnera eta igangailu elektrikorik ez baitago hirugarren estairaino hupatzeko. Herria

APF elkarteak frantses estatuan egin ikerketa batek erakusten du **enbalditu** batek beste gizonki batek baino hamabost aldiz mentura gutiago duela lan proposamen baten ukaiteko. Herria

Estatuaren gandik gaitasun berriak eskuratzearekin, **enbalditen** saila goitik behera ikertu du departamenduak. Herria

Enbalditen gunea, huntan lau biltegi badira, horietan metatzen dira 61 urtez goiti direnak. Michel Oronoz

---

enbalier *izond ipar* pertsonez mintzatuz, ezindua, elbarritua.

Egun batez presuna **enbalier** batzuekin gertatu zen. Herria

Donapaleuko Errecart lizeoan, jende eri edo **enbalierren** elgarretaratzea izanen da. Herria

Errex da eri haundi edo **enbalier** bati mintzatzea? Menane Oxandabaratz

Zonbeit urte lehenago, 1981 ean, 1 000 hil eta 5 000 **enbalier** Espainian, olioa hobendun. Herria

Beribil ixtripu batean aitak bizia galdu zuen eta Jean Paul biziko **enbalier** gelditu zen. Herria

---

enbaliertu, enbalier(tu), enbaliertzen da/du *ad ipar* enbalier bihurtu.

Aspaldiko urtetan **enbaliertua** zen, eta bakarrik bizi zen Herriko Etxeko apartamendu batean. Herria

---

enbarazagarri *izond* deserosoa, eragozgarria.

Ez zidan sekula galdera **enbarazagarririk** egin, eta are ez zidan sekula itaundu ea judua nintzen. Juan Garzia

---

enbarazo ik **enbarazu**.

---

enbarazu *(orobat **enbarazo** g.er.)* **1** *iz* oztopoa, traba.

Arazo bat gutxiago, pentsatu bide genuen, egia esatera gorpu baten hurbiltasunak urduritasuna sortzen baitu, edo urduritasuna baino gehiago, **enbarazua**. Karlos Linazasoro

Lanean sartuta zaudenean horretara zaude eta gogaikarri suertatzen da konpromiso oro, konpainia oro, jan beharra bera ere **enbarazu** bat besterik ez da. Harkaitz Cano

Horregatik, **enbarazua** eta traba besterik ekartzen ez badit ere, poztu ere egiten naiz, nolabait esateko, nire baitan sekretu hori berriro sentitzen dudan unea iristen denean. Josu Zabaleta

Planteamendu arrazialak **enbarazu** bat baino ez dira asmo horretan. Joxe Azurmendi

Breeko gau hartatik, **enbarazua** besterik ez gara izan zuretzat. Agustin Otsoa

ETAk herri honentzat mehatxuzko eta indarkeriazko **enbarazu** izateari utzi behar dio, eta Batasunak argi eta garbi egin behar du bide demokratikoen eta politikoen alde. Berria - Euskal Herria

Enbarazua eta kaltea besterik ez dakarte honelako kontuek. Mirentxu Larrañaga

Neskak bazuen susmoa, esan zuen, egun batzuetatik, baina ez zion **enbarazurik** sortu nahi izan, harik eta erabat ziur egon arte. Mirentxu Larrañaga

-Kaixo George, bene-benetan sentitzen dut zuri eta Mr. Winthrop-i **enbarazurik** eragin izana. Lopez de Arana

Horregatik sinatu dut inolako **enbarazurik** gabe liburu hori... ez zuen ezer hondatzen. Josu Zabaleta

Enbarazu -keinu bat egin zuen. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Ez zuan garai hartan autoen **enbarazu** handirik izaten kaleetan. Pako Aristi

Sentitzen zuela esan zion Matiasek atea ireki zion andreari, baina mesede bat eskatu nahi ziola, **enbarazu** handia ez bazen. Unai Elorriaga

Beldur horrek uxatu egin dit nire zango bustiek eta esku izoztuek eragiten didaten **enbarazu** itzela. Mirentxu Larrañaga

Euri fresko gozoak basoko suteei ere **enbarazu** polita prestatzen die. Pello Zabala

Esku-burdinak ez direla **enbarazu** txiki gogaikarri bat soilik. Anton Garikano

3 ***enbarazuan*** *adlag* traba egiten.

Enbarazuan dagoen mendi edo muinoa pasa eta gero, hantxe eguteran. Pello Zabala

"Barkatu, arren", edota "Ez, ez... ni nengoen **enbarazuan"**. Mirentxu Larrañaga

4 ***enbarazu egin***

Bat baino gehiago omen zebilen gerra bere aldetik egin nahian, lagundu beharrean **enbarazu egiten**. Aztoratua zegoen, egin berria nion aitorpenak **enbarazu egiten** zion. Inazio Mujika Iraola

Inor ez da prostataz gogoratzen, **enbarazu egiten** hasten den arte. Berria - Gaiak

-Kanpotarra: jauregian **enbarazu egiten** jarraitu behar al duk, eskean? Juan Kruz Igerabide

Ez nion AEPri **enbarazu egin** nahi igande goiz batean ateko txirrina joaz. Oskar Arana

-Ez nuke pentsatu ere egin nahi -esan zuen neskak-, lanean **enbarazu egin** dizudanik. Mirentxu Larrañaga

Poliziak berriz ere **enbarazu egiten** badizu, gezurra esaiezu, egizu nahi duzuna, baina batez ere bizi zaitez eta indartsu izan, zugatik eta gure semeengatik. Jon Muñoz

Barkatu baina aipamen horrek ez dit **egin enbarazu**. Berria - Kultura

· Baina ezetz erabaki zuen; ez **enbarazurik egitea**. Anton Garikano

Ahapeka, ingurukoei **enbarazurik** ez **egitearren**. Imanol Zurutuza

Ez dizu **enbarazu** handirik **egingo**. Iñaki Iñurrieta

Bezperatik lainoz eta hodei arrez jositako zeru ilun goibelak ez digu inolaz uzten, **enbarazu** galanta **egin** bai. Pello Zabala

Ongi duk, banoak, eta ez diat **enbarazu** gehiago **egingo**. Agustin Otsoa

Goizean hirira joan nahi zuela esan zion Eumeori, ez zuela **enbarazu** gehiago **egin** nahi. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enbarazu besterik (3); **enbarazu egin** (24); **enbarazu egin gabe** (3); **enbarazu egin nahi** (5); **enbarazu egingo** (7); **enbarazu egiteko** (3); **enbarazu egiten** (52); **enbarazu egiten ziela** (3); **enbarazu gehiago** (4); **enbarazu handia** (4); **enbarazu handirik** (3); **enbarazurik egin** (11); **enbarazurik egin ez** (3); **enbarazurik egingo** (7); **enbarazurik egiten** (6); **enbarazurik ez** (5); **enbarazurik gabe** (4); **enbarazurik sortu** (4); **enbarazurik sortu nahi** (3); **ere enbarazu** (4); **eta enbarazu** (7); **inolako enbarazurik** (8)

---

enbarazuka *adlag* enbarazu eginez.

Hau dena, neronek orain ia 50 urte jakindakoa eta, han tartean aita zenari, lagundu ustez, **enbarazuka**, pozik ikusi eta gogoan jasotakoa da. Pello Zabala

---

enbargatu, enbarga, enbargatzen du *ad* pertsona baten ondasun bat atxiki epaile baten aginduz, zor edo kideko bat kitatuko dela ziurtatzeko.

Diru-kontuak blokeatu zizkion, **enbargatu**, gure arteko epelena ere amorrarazi zuen erabaki zaputz baten bitartez. Berria - Kultura

Oso gaizki gaude, gure artean bada jendea bere karroak, etxeak **enbargaturik** dituena. Pako Aristi

---

enbargo **1** *iz* pertsona baten ondasun bat atxikitzea epaile baten aginduz, zor edo kideko bat kitatuko dela ziurtatzeko; armak eta kidekoak salerosteko edo garraiatzeko debekua, herri batek beste baten kontra dekretatzen duena.

Aristide amildegira eraman duen politika, errepublikanoek 2000. urtean onarturiko **enbargoarekin** hasi zen: AEBen presioaren eraginez, edateko ura, alfabetizazioa eta osasungintzarako Haitirako 650 milioi dolar izoztu zituen Amerika Arteko Garapenerako Bankuak. Berria - Mundua

Iraken salbuespenarekin -Kuwaiteko inbasioaren ondoren, nazioarteko **enbargoaren** pean egon zen bertako ekoizpena-, HPEE erakundearen ekoizpen-ahalmena bere goreneko mailatik hurbil zegoen. Koro Navarro

Erosgai guztiak Iranetik kontrabandoan ekarriak ziren, Bagdadek **enbargoa** ipinia baitzien Barzani gure buruzagiak kontrolatzen zituen lurraldeei. Juan Kruz Igerabide

1985az geroko petrolio gordinaren kontsumoaren gorakadaren erritmoari (%1,6 urteko) eusten bazaio, prezio errealek laster egingo dute gora, Iraken gaineko nazioarteko **enbargoa** kentzen ez bada behintzat. Koro Navarro

2 irud/hed

Komunikabideek gertaerei buruz helarazi dien informazioari buruzko **enbargoa** altxa dezan eskatu diote Sarkozyri. Berria - Euskal Herria

---

enbarkada *iz* **

Izan ere, Roberto honek **enbarkadak** antolatzen ditu, gauzak agindu bai eta gero ez ditu betetzen. Pako Aristi

---

enbarkadero *iz* ontziralekua.

Harrizko eskailera zaharren goiko mailetan jesarri zen, nasa trasatlantikoko **enbarkaderoan** zegoen oraindik txalupa. Koldo Izagirre

Komandantziako leihoak argituak zeuden beheko solairuan, soslai bat ikusi uste izan zuen, **enbarkaderora** beha. Koldo Izagirre

Enbarkaderoko pasarela horizontalean zegoen. Koldo Izagirre

---

enbarkatu, embarka, enbarkatzen **1** da *ad* ontziratu.

Bera ere, noiz **enbarkatu** zen ganorazko ontzi batean, ba? Edorta Jimenez

Enbarkatu gara eta itsasora irtenda lehorreko izkinada bistan dela goaz, mangle zerrenda luzea dugula istriborreko bandan. Joseba Sarrionandia

Horrexegatik esan dizut portua ez zen beste lekuren batean **enbarkatu** nahi izango zuela, eta hantxe harrapatu zutela. Edorta Jimenez

Ez ahantz, **enbarkatuz** aise joanen baldin bazara, aldiz barkean edo ontzian **enbarkatzen** denak ez duela beti denbora nahi duen bezala; hobe dela bakarrik konpainia gaiztoarekin baino. Aurelia Arkotxa

Bera marinel dabilen Aintzatasuna arrantzontzia beste baporeekin batera Bilborako da-eta, ahor herrikoak **enbarkatzen**. Edorta Jimenez

• **2** du *ad*

Kataluniako Aste Tragikoa Bartzelonan sortu zen, tropak **enbarkatu** nahi izan zituztenean Kuba eta Filipinetarako. Markos Zapiain

Badaki hark hortxe geldi geratuko direna, harik eta arraina **enbarkatu** arte behintzat. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enbarkatu nahi (3)

---

enbarkatze *iz* ontziratzea.

Enbarkatze egunean tenperatura igo egingo da iparsortaldeko haizearekin, zero azpitik 5 gradura, eta izotza urtzen hasiko da berriro. Joseba Sarrionandia

---

enbarkazio *iz* ontzia; itsasontzia.

Kalaportu ez zen handia, sasoi hartan portuak hamabosten bat **enbarkazio** izango zituen, ontziola ere bai konponketak egiteko, eta elur fabrika, eta beste gauza asko. Joseba Sarrionandia

Ontziratuta zaudela iradokiko dizut eta itsaso zabalean zehar **enbarkazioa** abantean doala. Joseba Sarrionandia

Beheranzkoan, hareaz beteriko zakuokin kartoletaraino **enbarkazioa**, udaletxe aurreko nasara datoz, eraikin horixe babesteko dira-eta mozolo-itxurako zakuok. Edorta Jimenez

Motorra itzali eta **enbarkazioa** geldituta ere, izotz haitz bat hurbilduko zaizue istriborretik. Joseba Sarrionandia

Gero arrantzaleak helduko ziren, sare konpondua **enbarkaziora** eramateko. Joseba Sarrionandia

Hementxe dituk faxistak gauez pasatzen dituen gizonaren datuak; eta haren **enbarkazioaren** izena. Edorta Jimenez

Edwin **enbarkazioaren** karelean topatuko duzue. Joseba Sarrionandia

Enbarkazioaren kroskoa ez du izotzak intxaur oskola lez hautsiko. Joseba Sarrionandia

Eta Kaioarri geratu zen bakarrik agertuan, **enbarkazio** herdoildua, eta kaioak gainean jirabiraka, eta orain Kalaportu atzean utzi eta istriborretik ateko bandako iluntasunera so egin zuen. Joseba Sarrionandia

Enbarkazio eskoratuaren kroskoaren alboan. Joseba Sarrionandia

Enbarkazio txiki, ez hain txiki eta handi gutxi haien anabasan bihotzak besterik diotso. Edorta Jimenez

Nasan, banda batera etzanda zeuden **enbarkazio** asko, itsasora irteteko asmorik gabe, emakume eta santu izenak erakutsiz. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
enbarkazio bat (3); **eta enbarkazioa** (7)

---

enbarke *iz* ontziratzea.

Enbarkerako deitzen hasita zeuden, ez zegoen hitz egiteko beta handirik. Bernardo Atxaga

Enbarkerako deitzen hasita zeuden, ez zegoen hitz egiteko beta handirik. Bernardo Atxaga

---

enbata **1** *iz* itsasotik datorren haize gogorra edo ekaitza; haize joaldia. ik **galerna**.

Enbataren indarrez itsasoa gero eta harroago zegoenez, lokarriak puskatuta eta aingurak galduta, ontzia, olatuen jostailu, noragabe zebilen itsas gainean. Askoren artean

Enbatak ontzi bat hondora dezake. Iñaki Iñurrieta

Alexandroren ontziek, Patialatik uztailean abiatuta, **enbata** asko jasan zituzten, eta bidaia luzea izan zen, kontrako monzoiarekin bidaiatu zutelako. Iñaki Iñurrieta

- **Enbatak** jotzen duen gau batean itsasoratuko gaituk. Koldo Izagirre

Bere burua botako zuela zabaldu zen auzoan, hala egiten omen zuten **enbata** sortuta bokalera ezin sarturik senarrak itotzen ikusten zituzten emakumeek, garai batean. Koldo Izagirre

Zoruko hormigoia hareazko alfonbra batez estalia zegoen, **enbatak** ekarria. Anjel Lertxundi

Sopranoendako kabatinak abestuko ditu, mareen, hurakanen eta **enbaten** musika eternala abesten duen itsasotik hurbil. Koldo Izagirre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hautsa, eta burdinurtuzko farola, xirulaka hasten dena, eta ni kulunka eta barrez, farolaren argi dardarkari eta hil-hurrenkaria, **enbata** galanta behar du izan gaurkoak ere, zaldi irrintzikariak ozta-ozta eusten baitio gurdiari. Joxe Austin Arrieta

Monzoi bataren eta bestearen artean, haizeak aldatu egiten dira aldi batez, eta iparraldeko haize batek, ohiko haizeekin nahastuta, **enbata** izugarriak eragiten ditu batez ere itsasbazterretan. Iñaki Iñurrieta

Enbata lazgarrienak bisita egin balio bezala zegoen guztia: sarrerako ispilua txiki-txiki eginda, altzariak lurrean, aterkiak sakabanatuta... Fernando Morillo

1987an, azkenik, Galizia aldean izan zen oraingoan **enbata** latza, hiru egun iraun zuena. Pello Zabala

1897an, Kantauri aldean bota zuen berebiziko **enbata**, hasi Galiziatik eta Asturias eta Santander nahastuz, Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldea serio kastigatu zituelarik. Pello Zabala

Haizearen **enbata** lasterra sentitu genuen, gure gainetik igaro zenean. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Badaki eguraldiak nahasi-bidea hartzen garaitsu honetarako, eta galerna-hotsak ere, **enbata**-zantzuak zabaldu ohi dira batzuetan. Pello Zabala

Enbata gau batean, 1820an, oraino jakin ez den esku batek kandela eman zion lau bazterretarik. Koldo Izagirre

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mesprezuzko behako hura egotzi zidan, laburra baina hertsia [...], zeinaren aitzinean sentitu bainintzen hautsa haize-**enbataren** magalean bezala. Joan Mari Irigoien

Marka guztiak hautsi zituen montzoi **enbata** 1861ean gertatu zen. Pello Zabala

Batak kementsu erakusten dio aurpegia, ihien malgutasunaz mugitzen diren zangoen gainean aurrera okertuta doan gorputza ekaitz-**enbatena** lako indarrarekin bultzatuz. Pako Aristi

5 irud/hed

Gure aitari koleraren haizea etortzen zitzaion eta azkenean beti **enbata** hasten zen. Pello Lizarralde

Errioxatik etorritako **enbata** bortitz batek astindu zituen Atano III.ko zoko guztiak arerioen asmoak birrinduz eta ikusle askoren asmoak zapuztuz. Berria - Kirola

Orain isilik da Amaiaren baitako **enbata**. Urtzi Urrutikoetxea

Hiruretan hogei bat urte, giro udatiarragatik ere jertse lodi bat janzten zuen, ez noski haizegailuen **enbatei** buru ematearren. Aingeru Epaltza

'Tramontana'-ren **enbatari** ondo eutsi diote euskaldunek eta sailkapeneko goialdean daude. Berria - Kirola

Beldurraren **enbatak** bortizki kolpatu zuen hurrengo Big Lannie eta ikarak jota jarraitu zuen gau eta egun.Tontor haizetsuren batean duda-mudan eta inongo babesik gabe zalantzaren **enbata** guztien mendean. Mirentxu Larrañaga

Bizitza-aldi lasai gisa oroitzen dut nik hura, zure baitan **enbata** mozorrotu bat izan zitekeela ohartzen naizen arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaztea aise altxatzen dela bihotza astintzen duten gertaera malerusetatik, baina zaharrak peril handia bizi duela antzeko **enbaten** aurrean. Pako Aristi

Mareen, hurakanen eta **enbaten** musika eternala. Koldo Izagirre

Kodeak ezartzen duen kautela erabili zuenez, borrokalari mairuak baizik ez zituela zain izango **enbatari** eusteko, denak gizonezkoak eta denak sasoikoak. Jon Alonso

---

enbaxada *(orobat **enbajada** g.er.)* **1** *iz* enbaxadorearen egoitza; enbaxadoreak bere esku dituen enplegatu eta langileen multzoa.

Sutan zeudenak Danimarkako eta Norvegiako **enbaxadak** ziren. Iñigo Aranbarri

Peruko **Enbaxada** eta Uruguaiko Ordezkaritza, biak eraikin berean dagozela-eta bigarren horretako ministroari deitu dio. Edorta Jimenez

Danimarkako eta Norvegiako **enbaxadak** erre zituzten atzo Damaskon. Berria - Mundua

Enbaxadako eraikineko behealdean zegoen negozio-denda batean. Edorta Jimenez

Agian, zerbait jakinen zuten **enbaxadako** bulegoetan. Ramuntxo Etxeberri

Danimarkako **enbaxadaren** aurrean egin zuten elkarretaratzea. Berria - Mundua

Indonesiako hiriburuan Australiak duen **enbaxadan** bonba batek zortzi pertsona hil eta 161 zauritu zituen. Berria - Euskal Herria

Egunen batean zerbaitengatik Argentinarako bidaia-agiria beharko bazenu, erakuts ezazu txartel hau Argentinako edozein **enbaxadatan** eta emango dizute, inolako zalantzarik gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Datuok Estatu Batuen Buenos Airesko **Enbaxadan** ematen ditugu eta hark berak helarazten dizkio Atlantikoaren kontrola duen gerra-armadari eta amerikarren Madrilgo **Enbaxadari**, biei. Edorta Jimenez

Espainiako **enbaxadatik** deitu zuten. Berria - Euskal Herria

Karta hartan **enbaxadak** aditzera ematen zion Krapotkin printzeari Rifkin anaiak Tsarraren grazia berezi bati esker libre zirela eta Lea arrebak ez zuela ezeren beldurrik Errusiara itzultzeko. Matías Múgica

Moskun **enbaxadak** autoa jarri zigun. Edorta Jimenez

Enbaxadak, gainera, ez zuen hartarako eskurik ere. Matías Múgica

Irango **enbaxadako** idazkari nagusia tiroka hil zuten atzo Bagdaden. Berria - Mundua

Horiek ez zirela estatubatuarrak zehaztu zuen Riaden AEBetako **enbaxadako** eledun Carol Kalinek. Berria - Mundua

Enbaxadako lekaioa ikusi nuen niregana lasterka etortzen: Solowejczykek ikusi nahi ninduen. Matías Múgica

Enbaxadako funtzionarioek badakite non diren lagundu beharko diren herrikideak. Ramuntxo Etxeberri

Enbaxadako pertsonala arduratu zela puruak lortzeaz. Jon Alonso

Estatu Batuetako **Enbaxada** itunaren mamia berriztatuz eta egokituz joango da. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunenkin)

Espainiarako turismoa sustatzen duten estatuetako tour-operadore, bidaia agentzia eta **enbaxada** nagusiei. Berria - Euskal Herria

Armak zituztela eta «atzerriko **enbaxaden** kontrako atentatuak» egitekoak zirela esan zuen Barne ministroak. Berria - Mundua

Oriente hotelean errusiar **enbaxada**. Jokin Urain

Azkenean Erroma, bereziki frantses lizeoa eta frantses **enbaxada**, ahantzi gabe "Villa Medicis" famatua. Herria

Garai hartan esan zuen bezala sir Paul Rycaut-ek, Konstantinoplako ingeles **enbaxadako** idazkari argiak: [...]. Iñaki Mendiguren

3 mezu bat daramaten pertsonen multzoa; enbaxadore baten bidez heltzen den mezua.

Handik egun pare batera Jean-Baptiste nekaezinak "Gizateria osoaren **enbaxada"** antolatu zuen, Frantziako "Assemblée constituante"ra joateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiritik **enbaxada** kulturala etorri, neu, alegia, baserritarrei mendetako ezjakintasun eta ilunpetik irteten laguntzeko, modernitatearen argiak ukuiluetan sartzeko eta Lady Godiva azaltzen ez zait bada! Joxean Sagaztizabal

"Asma ezazu", esaten zioten, "nola bizi eta nola hartu **enbaxadak"**. Iñaki Iñurrieta

Tamalgarria ikuskizuna; beranduegi da heldu Ingalaterratiko gure **enbaxada**. Juan Garzia

Ospetsu bihurtzen da bat bere nazioan eta inguruko herrien artean, kideen kopuruari eta ausardiari esker besteen gainetik jarriz gero; opariak jasotzen ditu; **enbaxadak** iristen dira alde guztietatik. Iñaki Iñurrieta

4 irud/hed

Munduan Bilboko kultur **enbaxada** izatera iritsi da. Berria - Kultura

5 ***enbaxada-etxe***

Gerra hasi eta laster Estatu Batuek, beste estatu askok egin moduan, **Enbaxada**-Etxea haraxe aldatua baitzuten. Edorta Jimenez

Sotoa hustu eta behi-zezinaz, artilez eta larruz bete bitartean, Britainia Handiko **enbaxada**-etxean ostatu hartzeko eskaintza egin zien Erreginaren ordezkariak. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako enbaxada (3); **aebetako enbaxadak** (3); **aebetako enbaxadako** (6); **aebetako enbaxadan** (5); **aebetako enbaxadaren** (3); **australiako enbaxadaren** (4); **australiako enbaxadatik** (3); **duen enbaxada** (3); **duen enbaxadako** (6); **duen enbaxadan** (9); **duen enbaxadaren** (7); **duten enbaxadaren** (3); **enbaxada erre** (4); **enbaxada eta** (9); **enbaxada etxean** (4); **enbaxada etxera** (3); **enbaxadak ez** (3); **enbaxadako bigarren** (3); **enbaxadako idazkari** (6); **enbaxadan bonba** (3); **enbaxadan bonba batek** (3); **enbaxadaren arabera** (3); **enbaxadaren atarian** (3); **enbaxadaren aurkako** (3); **enbaxadaren aurrean** (7); **enbaxadaren eta** (3); **enbaxadaren kontra** (3); **enbaxadaren kontrako** (5); **enbaxadaren kontrako erasoa** (4); **enbaxadatik hurbil** (4); **enbaxaden aurkako** (3); **enbaxaden aurrean** (4); **erresuma batuko enbaxadak** (3); **espainiako enbaxadako** (5); **espainiako enbaxadan** (7); **estatu batuetako enbaxada** (5); **eta enbaxada** (4); **eta indonesiako enbaxadak** (3); **frantziako enbaxada** (5); **frantziako enbaxadako** (4); **frantziako enbaxadan** (4); **habanako enbaxada** (3); **habanako enbaxadan** (4); **indonesiako enbaxadak** (3)

---

enbaxadore *(orobat **enbajadore** g.er.)* **1** *iz* goi mailako diplomatikoa, beste estatu batean berearen ordezkari dena.

Europako nazioetako kontsulak eta **enbaxadoreak**. Felipe Juaristi

-Heraldoa eta **enbaxadorea** nauzue, eta inork ezin dit eraso egin! -esan zuen ozen. Agustin Otsoa

Jende Zuzenbideak nahi izan du printzeek elkarri **enbaxadoreak** bidaltzea: eta arrazoiak, gauzari berez dagokionez, ez du biderik eman **enbaxadore** horiek, non enplegatuta egon, bertako soberanoaren edo honen epaimahaien mende egon daitezen. Iñaki Iñurrieta

Horrela duzue jakinen zein diren ederrak hogeita sei urtez Kubilai Khan Handiaren **enbaxadore** bezala gelditu gabe lau haizeetara kurritu izan ditudan lurrak. Aurelia Arkotxa

Handiak, Ulatai, Apuska eta Koia, Argonen hiru **enbaxadoreak** deitu zituen eta ere aita eta osaba, hau erranez: [...]. Aurelia Arkotxa

Roosevelt presidenteak Bowers **enbaxadoreari** bere hitza eman zion. Edorta Jimenez

1942an Estatu Batuen Kubako **enbaxadore** Spruille Braden jaunari "Madrilen izan nuenaren" antzeko sarea jostea proposatuko dio. Edorta Jimenez

Galde egin zioten veneziarrek Espainiako **enbaxadoreari** ea zer egitea nahi zuten presoarekin eta hark veneziarren zuhurtzia laudatu zuen eta erantzun berak ere Espainian zituen nagusien aginduak behar zituela. Felipe Juaristi

Hura jarduneko Charge d'Affaires of Spain dago, harik eta Francoren gobernu berriak bere **enbaxadorea** izendatu arte. Edorta Jimenez

Garaiotan Kuban Estatu Batuetako **enbaxadore** dagoen Spruille Bradenen iritziz, Fundazioa komunisten habia da. Edorta Jimenez

Egin lehenago harrera **enbaxadoreei**: ene berriak dirateke oturuntzaren azkenburuko. Erbesteratu [...]: bere herriari kanpoan biziz zerbitzatzen diona, **enbaxadorea** izan gabe, ordea. Juan Garzia

Gogoan izanik Spruille Braden **enbaxadore** berriak bere kredentzialak Kubako Gobernuari maiatzaren 19an erakutsi zizkiola, [...]. Edorta Jimenez

Hala bada, 1943ko udagoienean lekutan dira Bowers **enbaxadore** ohiak Ameriketara abiatzean egindako ametsak. Edorta Jimenez

Haren hariak erabiltzen zituztenek uste baitzuten musikarien zeregina bake-**enbaxadoreena** egitea zela. Felipe Juaristi

2 irud/hed

Jainkoaren **Enbaxadore** izate hori ohoratzen baitzen lehenik eta behin. Josu Zabaleta

'Erbesteratua, herritik urrundua, bere herriaren **enbaxadorea** izan behar da edonon,' esan zuela gogoratuko duzu, ez dakizu nork. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako enbaxadore (13); **aebetako enbaxadore john** (3); **batuetako enbaxadore** (6); **batuetako enbaxadore john** (3); **duen enbaxadore** (30); **duten enbaxadore** (10); **duten enbaxadore zalmai** (3); **enbaxadore bat** (3); **enbaxadore izan** (4); **enbaxadore izandako** (3); **enbaxadore izendatu** (4); **enbaxadore john** (14); **enbaxadore john boltonek** (4); **enbaxadore john danforthek** (4); **enbaxadore ohi** (7); **enbaxadore ohiak** (7); **enbaxadore spruille** (4); **enbaxadore spruille braden** (3); **enbaxadore thierry** (3); **enbaxadore wang** (4); **enbaxadore wang guangyak** (4); **enbaxadore zalmai** (8); **enbaxadore zalmai khalilzadek** (5); **erakundean duen enbaxadore** (4); **espainiako enbaxadore** (4); **estatu batuetako enbaxadore** (6); **gobernuaren enbaxadore** (3); **irakeko enbaxadore** (3); **kubako enbaxadore** (3); **nben duen enbaxadore** (6); **zuen enbaxadore** (5); **zuten enbaxadore** (4)

aebetako enbaxadoreak (3); **aljeriako enbaxadoreak** (4); **baali aljeriako enbaxadoreak** (3); **duen enbaxadorea** (6); **duen enbaxadoreak** (9); **duen enbaxadorearen** (4); **duten enbaxadoreak** (9); **enbaxadorea eta** (4); **enbaxadorea izan** (7); **enbaxadorea izan zen** (3); **espainian duen enbaxadoreak** (3); **eta enbaxadoreak** (3); **israelgo enbaxadoreak** (3); **nben duten enbaxadoreak** (3); **zuen enbaxadoreak** (5)

---

enbaxadoreorde *iz* enbaxadorearen hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

James Cunningham AEBen NBEko **enbaxadoreordeak** esan zuen: «Israelek Gazan egunotan burututako ekitaldiek bakeari eta segurtasunari ez diete mesederik egin». Berria - Mundua

---

enbaxari *iz* enbaxadorea.

Jakina, badira erregeak, zaharrak eta jakintsuak, printzeak eta **enbaxariak**: aidaioi basilheV, gerontoV eta horrelakoak: horiengana guztiengana begirunea sentitzen da berez, eta horien iritzi ona edo txarra garrantzitsua da munduan. Iñaki Mendiguren

enbeia *(orobat **inbeia** g.er.) iz ipar* desira, guraria, gogoa.

26 liburu idatzi ditut euskaraz eta, beti dut gogoa eta **enbeia**, euskararen ontsa ikasteko. Herria

-Lena pilota horiek - **enbeia** dut zuri galdegitea-, orain gizon gazteek egiten dituzte ere, erraiten den bezala, emazteen lanak. Menane Oxandabaratz

Orain gosea nagusitu zait, ohartu banaiz ere parropiaren eliza bereziari, bere horma alimalearekin pleka aritzeko **enbeia** emaiten didana. Piarres Aintziart

Herriaren maitatzen hasi naiz, urrunegi joan gabe: barne iraultza zailegia zitzaidan eta ez nuen nere buruarekin borroka aritzeko **enbeiarik**. Indarrik. Piarres Aintziart

Eta hor badituzue proiektu berri batzu edo... **enbeia** batzu? Menane Oxandabaratz

Amak ez zuen alabaina, gaiaren muinera lerratzeko **inbeia** handirik. Itxaro Borda

-Ez, ez diat dantzan aritzeko **enbeia** handirik. Janbattitt Dirassar

enbidia ik **inbidia**.

enbidiatu ik **inbidiatu**.

enbido *(orobat **inbido** g.er.)* **1** *interj/iz* musean, bi tantoko apustua; enbido egiteko formula.

"Enbido", entzun genuen orduan. Inazio Mujika Iraola

Enbido txikira, Luisek. Alberto Barandiaren

Baina, jakina, Hélène Daudet-ek eutsi egin zion **enbidoari**, hark uste ez bezala, bere kartetan konfiantza osoa zuelako. Ramon Saizarbitoria

Hala ere, atxiki egin nion **enbidoari**. Aingeru Epaltza

-Ordian entseatuko gera **inbido** egitea. Menane Oxandabaratz

2 irud/hed

Erronka latza litzateke 13 egunetan bost kilo gehiago erantsi eta saiakera egitea 280koarekin, baina guk **enbidoa** botatzen diogu. Berria - Kirola

PSE-EEren **enbidoari** eustekotan egon daitekeela iradoki du Imazek. Berria - Euskal Herria

ALTADISEK (%2,1) erreakzio azkarra izan du, Philip Morrisen **enbidoari** prezioak jaitsiz erantzunda: aurretik erabakitako prezio igoera pipatu eta akzioa kea dariola laga du. Berria - Ekonomia

Sarak bere **enbidoa** bota zidan arte. Joan Mari Irigoien

Gatazkaren **enbidoa** gutxi balitz bezala, hordagoa bota die enpresak Gabonen bezperan: Ernst&Young aholkularitzak eginiko azterketa batean oinarrituta, gaur egun dituen 239 langileetatik 77[...] sobran dituela jakinarazi dio langileen batzordeari zuzendaritzak. **Enbidoari** hordagoa joz, aurrera egitea erabaki dute hogeita hamazazpi gizonek aho batez. Berria - Ekonomia

Hainbeste **enbido** eta hainbeste hordago. Hasier Etxeberria

Alabaina, demoek hastapenean egindako **enbido** soilari entzungor eginez ihardetsi dio SNCFk. Berria - Euskal Herria

enblema *iz* irudia, ikurra, ezaugarria.

Elkarren ondoan, bi andreek ilunaren eta argiaren irudia osatzen zuten, tristeziaren eta alaitasunaren **enblema** moduko bat. Bernardo Atxaga

Mistikoek, jite bertsuko kinkan, **enblemak** darabiltza oparo: dibinitatearen adierazgarri, nolabait txori guztiak den txori bat aipatzen du pertsiar batek; Insulis-eko Alanusek, berriz, esfera bat. Juan Garzia

Bizitzaren eta heriotzaren arteko **enblemarik** sakonena hilobia eta tximeleta da. Berria - Kultura

Obabako garai haietan **enblema** moduan eraman zezakeela txaketaren solapan. Bernardo Atxaga

enblematiko *iz* ikur izaera duena.

Guretzat **idazle** enblematikoa den Isaias Schoppedhauer lehenbailehen kanoniza dezaten. Jon Alonso

Zebda talde **enblematikoa** Baionara etorriko da laster, Baiona Berria talde munizipalak gomitaturik. Herria

Kanta dezala *Blowin' in the wind* askatasunaren aldeko kanta **enblematiko** hura, orain berrogei urte bezala oraindik ere zoragarri. Joseba Zulaika

Musikari asko falta dira, esan duenez, abesti **enblematiko** ugari. Berria - Harian

Escoriala sartuz Perrault-en jatorrizko bertsioan azaltzen ziren eraikin frantses **enblematiko** haien ordez. Santiago Iruretagoiena

Gaur egungo arkitektura **enblematikoa** ez da jada Arantzazu edo gaur egungo eskultura **enblematikoa** ez dira Oteizaren apostoluak edo Chillidaren haize-orraziak. Joseba Zulaika

Hasia zegoen ordurako bere lanik **enblematikoena** prestatzen: *Historie (s) du cinema*. Berria - Kultura

Entelekiak argitaletxeko idazle **enblematikoena**. Jon Alonso

Zaila da, baina ez dugu ikusten beste biderik, fiskala eta epailea tematuta daudelako Iñaki Uriarekin, badirudi modu **enblematikoan** eduki nahi dutela espetxean. Berria - Euskal Herria

Lehendabiziko gorabehera **enblematiko** horietakoren bati lagunduta, diruak bereganatu egiten du ikurraren loria. Anjel Lertxundi

enblematikoki *adlag* era enblematikoan.

Ezin iker zezaten alminarraren gainetik **enblematikoki** menderatzen zituzten patio eta terrazen intimitatea. Jon Alonso

enbolia *iz* zain edo arteria batean koagulo edo kideko batek eraginiko buxadura.

Itxuraz, **enboliak** eman aurretik baino zuhurtasun handiagoa zuen, berehala ulertu baitzuen aukera hura hartu edo uztekoa zela. Ramon Saizarbitoria

Urtetan idatzi omen zioten elkarri, Hannak eta amak, eta berau, bestalde, ez ei zen **enbolia** batez hil, nik beti hala uste izan dudan arren. Joxe Austin Arrieta

Orduan aitarekin joan nintzen bizitzera, baina gertatutakoak ez zion inolako onik egin tabakoak hondatutako bere osasunari, eta bat-bateko **enbolia** batek eraman zuen handik hilabete batzuetara. Iban Zaldua

Elias Elortzak -berak zioen bezala, **"enbolia** txiki batek" eman zionez gero- nahiko lan izaten zuen hitz egiteko. Ramon Saizarbitoria

enbolismo *iz* enbolia.

Pozez eta etsipenez betetako sasoia izan zen, kontrazeptibo lez cocacola erabiltzen genuen, azido karbonikoa espermizida zelakoan, baina cocacolak peritonitis eta gas

enbolismo larriak eragiten zituen. Joseba Sarrionandia

---

enbolo *iz* zilindro edo ponpa baten barneko pieza zilindrikoa, hara-honako higiduraren bidez isurkari bat konprimatzen duena edo isurkariak bultzaturik higitzen dena.

Hagatxo horietan brontzezko ontzi batzuk jartzen dira, zilindroak; **enbolo** mugigarriak izango dituzte tornuan fintasunez landuak eta erdian burdinazko beso batzuk. Santiago Iruretagoiena

Goiko aldetik putzupadetan **enbolo** arrak sartzen dira, tornuan ondo leunduta eta olioarekin igurtzita, eta itxi ondoren barra eta palanka bidez jartzen dira mugimenduan. Santiago Iruretagoiena

Gela loretxodunean, hausnarrean etengabean, gogoeta gora eta behera zihoala **enbolo** bat bezala: tzun tzun tzun tzun! Fernando Rey

---

enbor *(854 agerraldi, 150 liburu eta 164 artikulutan; ETCn 6.562 agerraldi;) iz* **1** hainbat zuhaitz eta zuhaixkatan, sustrai eta adar nagusien artean gertatzen den zurtoinaren zatia. ik **gerri 5**.

Pinuek, **enborretik** adabururaino sugarretan, argi ematen zioten oparo eszenari. Karlos Zabala

Makilaren argiaz zuhaitz sendo baten **enborra** ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Zuhaitz batera hurbildu, **enborraren** arrimuan zegoen pala handi bat hartu, eta lorategira joan zen. Jose Morales

Otsaihenak [...], gorantz egin, eta erdiraino biltzen zuen urki puskatuaren **enborra**. Jose Morales

Muskerrak mango-arbolen **enborretan** gora. Karlos Zabala

Har itzak bi **enbor** neurri-neurrikoak eta emeak gehiago pisatuko dik. Pako Aristi

Beste landareak ere onartzen ditu: bai inguruan eta bai gainean edo **enborrean** gora, hasi goroldioetatik, ardagai eta onddo. Pello Zabala

Sustrai lodi bat hautatu du esertzeko eta **enborra** bizkarra bermatzeko. Pello Lizarralde

Biok ondo ezagutzen genuen arbola baten **enborreko** zokogune batean gorde nuen paper-muturra. Anjel Lertxundi

Han-hemenka paseatzeko, **enborrezko** langak, eta zubiño lizunduak latsen gainetik. Txillardegi

Enborra du perrexilaren antzekoa, zilindrikoa, eta sustraiak, ostera, urpeko harriei helduta eusteko modukoak. Hasier Etxeberria

Haritz zahar bat dago zutik; gure begiek hostoak ikusten dituzte urrunetik; hurbiltzean, **enborra** ikusten dute, baina ez sustraiak; lurra zulatu beharra dago haiek aurkitzeko. Iñaki Iñurrieta

Virtisuk **enborrak** paper ore bihurtzen ditu eta Pastgurenek musu zapi bihurtzen du paper orea. Berria - Ekonomia

Haritz zahar bat dago zutik; gure begiek hostoak ikusten dituzte urrunetik; hurbiltzean, **enborra** ikusten dute, baina ez sustraiak; lurra zulatu beharra dago haiek aurkitzeko. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bizkarra **enbor** lodi batean bermatu du. Pello Lizarralde

Han goitik, **enbor** lerdena eskuetan zut, esan zuen: [...]. Karlos Linazasoro

Zuhaitzarrak traskaildu arren, **enbor** zartatuak ere gorde nahi zituzten: eta usadio zaharren arabera, haur ala gaxte, hezurren bat apurtzen zuteneko, larrugorritan, **enbor** zaharretik pasarazten zituzten osatzeko. Pello Zabala

Hegazti guztiak pausatu dira **enbor** erorian, basapiztiak gorde haren adar artean. Elizen arteko biblia

Enbor hautsi mordo batek bidea gurutzatu zuen. Karlos Zabala

Konturatuko zarete zazpi zuhaitz luze daudela, eta **enbor** huts bakoitzean ume baten tamainako zuloa. Julen Gabiria

Hortxe bertan etxaurreko moilan lotuta dagoen txalupa buruka ari da **enbor** ustelduen kontra. Joseba Sarrionandia

Bordeleko ardo zuri gozoa, foie graserako; beltz lodi bat, indioilarrerako; eta Épernayko xanpaina brut bat, azkenik, **enbor** izozturako. Jon Muñoz

Saltzaile horren saltokia etxe kulunkari baten kontra bermaturik zegoen, eta goroldioz berdetutako **enbor** lodi batzuek eusten zioten. Karlos Zabala

Zuhaitz faltsua ez da zuhaitza, eta **enbor** faltsua ez da **enborra**, eta zilar faltsua ez da zilarra, eta faltsua den oro ez da. Imanol Unzurrunzaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errekondoetako zuhaitz batzuk, hango hezeduraren poderioz, zenbateko goroldioa biltzen zuten **enbor**-gerrian, edo antzerakoak. Pello Zabala

Quenu, berriz, pikadera baten gainean esertzen zen, hankak zintzilik, orpoak haritzezko **enbor** puskaren kontra joka. Karlos Zabala

Ontzi bat, txalupa bat, **enbor** azalez egindako kanoa bat! Karlos Zabala

Tarteka badaki **enbor**-koxkor bat lortzen ere, zarba bakarretik etorrita. Pello Zabala

Trenbidea babesteko **enbor** hesian tantai bat aurkitu zuten. Karlos Zabala

Lan haiek guztiak amaitzen zituenean, zaku eta **enbor**-garraioan hasten zen Samuel bizikletaren laguntzarekin. Anjel Lertxundi

Kyôto inguruko mendixketako pinu gorri arrunten **enbor** multzoak. Ibon Uribarri

Ingurumarian, berriz, ibaiaren edo errepidearen albo bietan eraikitako ohol-gaztelu eta **enbor** piloak zeuden. Bernardo Atxaga

Drogatu egiten gaituzte, **enbor** txikitzen jarrai dezagun bide onekoa litzatekeen agoantatzetik ere harantzago. Pako Aristi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zianzuloko baso **enbor**-biluzietan barrena. Pako Aristi

Han, bidean bertan, bazen pago mardul bat, **enbor** motza eta adar luzea. Pedro Alberdi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Banbu **enborrek** ere zilarrezkoak ziruditen. Ibon Uribarri

Zuhaitz **enbor** batek geldiarazi zuen azkenean, eta hari eskerrak ez ziren denak erori amilka bidetik kanpo. Karlos Zabala

Aizkolaria enbor gainean eta aizkora goian bezala egon ondoren, aizkorak pago-**enbor** bigunak bezain erabakigarri ebakitzen zituen brankak eraso-andanak. Anjel Lertxundi

Bizkor, haritz-**enbor** zabal baten atzera joan, eta alde banatatik begiratu zuten. Iñaki Mendiguren

Lizar **enborraren** kontra jarrita zegoen eskopeta, Baranda erori batzuk, pergola okertu bat, zuloz josiriko sahats-**enbor** zahar bat. Koldo Biguri

Arbeletan ira **enbor** fosilak aurkitu dira. Joseba Sarrionandia

Lasarten ere, trenbide ertz batean, giza-**enbor** bat agertu zela duela hamabost egun eta ea nola konponduko ziren Arruti entomologoaren laguntzarik gabetan. Hasier Etxeberria

Fez: kono-**enbor** baten forma duen txanoa, gehienetan gorria eta batzuetan borla batez hornitua. Iñaki Mendiguren

6 (elkarketa kopulatiboetan)

Denboraren buruan haziok ernaldu egiten dituk, zuhaitzaren **enbor**-adarrak dituztela lur, eta haren barruko zainetan dutela bizigarria. Edorta Jimenez

7 enbor zati ebakia.

Hondartzara joaten hasi zen, itsasoak lehorreratzen zituen **enbor**, ezpal eta oholen bila. Anjel Lertxundi

Hiriko galtzadak leun-leuna ematen zuen **enborrezko** bide haren aldean. Jose Morales

Pinu gazte txikiz osaturiko sastraka ziztrinak, suak kiskalitako pinu-**enbor** zaharrak. Jose Morales

Putzuak berak ere haritz-**enbor** sendoak zeuzkan, errotetan eta itsasontzietan soilik erabiltzen diren horietakoak. Jose Morales

Ez zen zaila izango **enborrezko** ontzi hari erreparatzea. Karlos Zabala

Muinoaren oinean -eta aldapan bertan ere bai- **enborrezko** izba grisak zeuden inguru guztian barreiaturik. Jose Morales

Bost **enborreko** beste sorta bat zegoen tximinian prestatua. Koro Navarro

8 (aizkora apustuetan erabiltzen dena)

Seina pago-**enbor** ebaki zituzten. Berria - Kirola

Etzandako txanda libreko **enborretan** erakutsi zuten ahalmena nafarrek. Berria - Kirola

Kana erdiko hamasei **enbor** ebaki behar zituen bakoitzak. Pako Aristi

Hamabi **enborrera** jokatuko dute saioa: lau 45 ontzako, lau kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko. Berria - Kirola

Bi bikoak zortzi **enborrera** eta txanda librean. Xabier Amuriza

Bi bikoteak batera, txanda librean; sei **enbor** : lau kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko (5 eta 0 puntu). Berria - Kirola

Zutikako **enborra** ; 45 ontzakoa. Berria - Kirola

Etzandako bi **enbor** : kanaerdiko eta 60 ontzako bana (1 eta 0 p.). Berria - Kirola

Hirurek batera 45 ontzako zutikako **enbor** bana ebakiko dute (2, 1, 0 puntu). Berria - Kirola

Zergatik diozu maitasun zita bat duen gaztea seigarren **enborrean** dagoen aizkolaria dela? Pako Aristi

9 irud/hed

Farolaren **enborra** zeukan bizkarrean. Koldo Izagirre

Atzeko zatia, garun-**enbor** deritzona, bizkar-muinetik garatzen da, hau da, bizkarrezurraren erditik igarotzen den nerbio sorta loditik. Irene Aldasoro

Helize-**enborra** ontzi-kroskotik ateratzen den gunean hain juxtu, helizeek han kanpoan lan egin zezaten. Joxe Austin Arrieta

Giza ezagutzaren bi **enbor** daudela, zeinak agian komuna zaien baina ezezaguna zaigun erro batetik sortzen diren, hots, sentimena eta adimena. Ibon Uribarri

Zeren eta etxe bakoitzak baitu bere **enborra** , eta **enbor** horretan sartzen dira lurrak eta aziendak. Enbrioietatik hartutako zelula amak edo **enborreko** zelulak oso erabilgarriak dira ikerkuntzak egiteko eta programa genetikoa hobeto ezagutzeko. Joan Mari Irigoien

Haren ustez, euskaldunek **enbor** genealogiko bera dutela dioen teoria indartzen du. Berria - Gaiak

Bigarren mailako zibilizazio suprafilialen taldeak (edo lehen mailako zibilizazioen **enbor** hilak) porrot egin zuen erabat. Iñaki Mendiguren

Enbor bereko ezpalak. Berria - Kirola

Gu sortu ginen **enbor** beretik. Herria

Gizakia egina dagoen **enbor** okerretik ezin da gauza erabat zuzenik eraiki. Berria - Kultura

-Merkatarien **enborrekoa** haiz -ekin zion, kutxa gotorreko giltza eskuin eskuan atxikirik-. Edorta Jimenez

Eta uler nezakeen haren semeak aitaren **enborreko** ezpalak zirela. Edorta Jimenez

Neguriko dirudunen **enborreko** ezpal galdua, molokot eginda bukatu zuen. Edorta Jimenez

Gisa berean gauzarik berrienak egun batetik bestera ahazten zaizkigu, baina aspaldi gertatu zirenak gure izaeraren **enborrean** huntz eginik diraute. Pako Aristi

Bartolomek zer erantzungo egon nintzen, gezurren **enborretik** beste ezpal bat emateko prest ote zen ez ote zen. Edorta Jimenez

Haren **enborra** Volgak osatzen du, eta haren erroak Kaspiar itsasoaren ertzean zabaltzen diren hirurogeita hamar bokaleak dira. Karlos Zabala

Orain badakit Andres Untzainen aita lanbidez abarketagile edo espartingilea izan zena eta, **enborretik** ezpala, abertzale sutsua izan zena ere. Edorta Jimenez

Eskola zaharrak erro, **enbor** , atzizki eta abarretan zatitzen zituen hitzak, eta erabateko balioa ematen zien zati horiei. Isabel Arrigain

Hauen gainean eta koloma-**enborrekin** eta pronaoko pilastra eta paretekin perpendikularrean jarrita, tiranteak eta gapirioak, basilika osoaren gailurrari eusten diotenak. Santiago Iruretagoiena

44 erro zahar, zeintzuek 160 hitz-**enbor** garrantzitsu ematen dituzten. Berria - Kultura

Enborreko ikasgaiak euskaraz emango dituzte datozen lau urteetan. Berria - Euskal Herria

10 giza gorputzaren zati nagusia, burua eta gorputz adarrak kokatuak daudena; ugaztunetan eta, delako zatiaren kidea.

Bat-batean, zauri-saki sekulakoa ikusi diot besaburuan, besoa **enborrari** lotzen zaion tokian. Anjel Lertxundi

Beso, zango eta **enborrean** daude muskulu ildaskatuak, eta nahierara mugitzen dira denak. Irene Aldasoro

Beste [muskulu] batzuek (besoetakoak eta **enborrekoak** , batez ere) era askotako lan motak egiten dituzte. Irene Aldasoro

11 *gorputz enbor*

apur bat makurtzen zuen aurrerantz **gorputz-enborraren** goiko aldea, eta gogor eta zehatz jotzen zuen lurra orpoekin. Jose Morales

Jeneralaren **gorputz-enborra** zanbuluka hasi zen irriaren eraginez. Jose Morales

Haren aldamenean Bobelina emakume heroi grekoa ikus zitekeen, zango bakoitza egungo ostatuetan elkartu ohi diren gizon irtirinen **gorputz-enborra** baino lodiagoa. Jose Morales

· Besoak **gorputz-enborraren** albo banatan utzi ditu jarraian, eta oso mantso eseri da berriro harri gainean. Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aizkolariak enbor osoa (8); **bakoitzeko aizkolariak enbor** (8); **baten enbor** (3); **bi enbor** (5); **enbor bakoitzeko** (4); **enbor bana** (5); **enbor bana ebakiko** (3); **enbor bat** (12); **enbor bat zeinek** (3); **enbor batean** (5); **enbor baten** (9); **enbor batzuk** (3); **enbor bereko** (8); **enbor beretik** (4); **enbor ebaki** (38); **enbor ebaki behar** (3); **enbor ebaki beharko** (24); **enbor ebaki zituzten** (6); **enbor ebakiko** (16); **enbor ebakiko ditu** (10); **enbor ebakiko dituzte** (6); **enbor ebakitzen** (3); **enbor eskulturak** (3); **enbor eta** (10); **enbor gainean** (3); **enbor genealogiko** (3); **enbor genealogiko bera** (3); **enbor handi** (4); **enbor hori** (3); **enbor lodi** (7); **enbor lodi baten** (3); **enbor nagusi** (3); **enbor osoa** (9); **enbor osoa ebaki** (8); **enbor puska** (3); **enbor zahar** (4); **enbor zati** (3); **eta enbor** (22); **eta zuhaitz enbor** (3); **gorputz enbor** (4); **hamabi enbor** (3); **hamar enbor** (6); **hamar enbor ebaki** (3); **hamar enbor ebakiko** (3); **haritz enbor** (3); **haritzezko enbor** (3); **hiru enbor** (3); **lau enbor** (6); **ontzako enbor** (5); **ontzako enbor bat** (5); **ontzako zutikako enbor** (3); **pago enbor** (6); **pago enbor ebaki** (4); **sei enbor** (7); **sei enbor ebaki** (4); **zituen enbor** (4); **zortzi enbor** (12); **zortzi enbor ebaki** (4); **zortzi enbor ebakiko** (5); **zuen enbor** (3); **zuhaitz enbor** (7); **zuhaitzaren enbor** (3); **zutikako enbor** (3); **zutikako enbor bana** (3)

aizkora enborrean (3); **azkenaurreko enborra** (3); **baten enborra** (5); **baten enborraren** (4); **bere enborra** (3); **bikoak zortzi enborrera** (3); **enborra baino** (3); **enborra ebakiko** (3); **enborra ebakitzen** (6); **enborra ere** (4); **enborra eta** (6); **enborra moztu** (3); **enborrak ebakitzeko** (4); **enborraren kontra** (7); **enborrean gora** (3); **enborreko adabegia** (3); **enborren artean** (4); **enborren gainean** (3); **enborrera jokatu** (4); **enborrera jokatu zuten** (4); **enborrez egindako** (3); **eta enborra** (12); **eta enborrak** (6); **eta enborraren** (3); **eta enborrean** (3); **etzandako oinbiko enborra** (3); **gorputz enborra** (13); **gorputz enborraren** (3); **hamabi enborrak** (3); **haren enborra** (3); **hirugarren enborra** (3); **hirugarren enborrean** (3); **lau enborrera** (3); **oinbiko enborra** (5); **ontzako enborra** (6); **ontzako enborra ebakitzen** (3); **sei enborrak** (3); **sei enborrera** (3); **soin enborra** (4); **soin enborrak** (3); **zortzi enborrera** (18); **zuhaitz enborrak** (7); **zuhaitz enborren** (3); **zutikako enborra** (4)

---

enbortxo *iz* enbor txikia.

Tarteka, zilindrotxoa eredu-zulotik pasatzen ote zen egiaztatzen genuen: pasatzen ez bazen, karrakatzen segitzen genuen; pasatzen bazen, berriz, **enbortxo** mehartua hautsi, eta kontu handiz gordetzen genuen pilan. Juan Garzia

---

enbortzar *iz* enbor handia.

Urki baten **enbortzar** zuriak -adabururik gabe, ekaitzek edo erauntsiek erauzi baitzioten- gaina hartzen zion baso tapituari. Jose Morales

Hirurehun urteko haritzak, hiru gizaseme adinako **enbortzarrekin** , izei, zumar eta makalekin nahasirik. Jose Morales

Ez zuen asko behar izan gorpuak erabat jiratu eta ur gainean ahozgoratzeko: orekarik batere gabeko pinu **enbortzar** bat bailitzan, ezkutuko aldea jarri zuen agerian. Hasier Etxeberria

---

enboskada *iz* zelata, segada.

"Erailketa bat izan da", lagundu dio Manuk, "hamaika bala sartu dizkiote Inaxi Zeberiori, **enboskada** bat izan da eta hiltzera joan dira, garbi-garbi, hogei zipaio armaturik, txaleko antibalekin, lotan zegoen borrokalari baten aurka...". Pako Aristi

Goienkalen, arkupeetan antolatu dute **enboskada**, zutabeen ostetik batbatean agertu eta inguratu egin gaituzte ordenaren guardiek. Joseba Sarrionandia

-Eta jeeparen **enboskada** berriro egiten badugu? -proposatu du Joxek, pegatinak eskuan oraindik. Jokin Muñoz

Ziur bainaiz **enboskadan** hil zutela. Xabier Amuriza

Falangistak agertzen ziren, atarte batetik edo edozein zutaberen ostetik **enboskadan**, lagunak bata besteagandik apartatu eta galdetzen ea zertaz ari ziren hizketan. Joseba Sarrionandia

Hemezortzigarren mendeak jada ikusia zuen oihaneko indiarra europar mosketeaz baliatzen zelata eta **enboskada**-gerran. Iñaki Mendiguren

---

enboxa *iz ipar*

Iragan udan 33 375 **enboxa** deklaratuak izan dira Urssaf-ean, hamar enboxatuetatik lau epe motzerako hartuak izan dira, bereziki eraikuntzan eta zerbitzuetan. Herria

---

enboxatu, enboxa(tu), enboxatzen **1** da *ad ipar* enplegatu, kontratatu.

CGT-koek galdatuko dute lan kontratu mugatuekin jada ari diren langilek lehentasuna ukan dezaten **enboxatzerakoan**, ez da batere errana zerbait ardietsiko dutenik. Herria

2 (era burutua izen gisa)

Hamar **enboxatuetatik** lau epe motzerako hartuak izan dira, bereziki eraikuntzan eta zerbitzuetan. Herria

---

enbra *iz adkor* emea.

Ikasten hasia zela esan zidan, eta nik, apal bada apal, nire aitzinean graduak irabazi nahi zituela **enbra** hark pentsatu nuen *Euskara, hire laguna* berreskuratzen nuelarik. Koldo Izagirre

---

enbragatu, enbraga, enbragatzen du *ad* enbragearen bidez motorra eta ardatza lotu.

Enbraga atzera! Joseba Sarrionandia

---

enbrage **1** *iz* ibilgailu eta kidekoetan, motorrraren higidura zirkularra ardatzera transmititzea edo ez transmititzea ahalbidetzen duen gailua.

Berrehun metroz berrehun metro galga jarri, gelditu, **enbragea** kendu, **enbragea** sartu, martxa aldatu beharra izango da, ezin askatuzko butxadura baten nahasmenduan. Josu Zabaleta

Enbragea askatu eta azeleragailuari eraginda, orroka egin du autoak aurrera. Urtzi Urrutikoeetxea

Ibilgailuaren koadro dotorera makurtua [...] gurpilei negar, **enbrageari** irrintzi eta martxa-aldagailuari karrank eginarazten zien. Aingeru Epaltza

Hemendik hamar kilometro egin baino lehen hiru auto joak izango ditu, **enbragea** zurrundurik izango du, pneumatikoak zulaturik. Josu Zabaleta

Enbragea erretzen, geldiro doa autobusa. Urtzi Urrutikoeetxea

Autoetako **enbrage** eta balaztetan. Berria - Ekonomia

2 gailu hori abian jartzen duen pedala edo kidekoa.

Zerbitzugunea bertan dago, abiadura jaitsi, **enbragea** zapaldu eta laugarren martxa sartzen dut, bostehun metroko seinalea, **enbragea** berriro, hirugarrena, eskuinetara bihurgunea, zuhaitz txikiak nonahi, orain urte gutxi landatuak. Mikel Hernandez Abaitua

Atzerako martxa eta hanka **enbragean** dardarati, kezkati hau ere (hanka eta ni bat gara). Lander Garro

"Gaugiro ederra!" esan, eta martxak aldatzeko eskua berriro **enbragera** eraman du. Pako Aristi

Dardara hura **enbragearen** gainean sumatzen zuen, aldaketa palankaren gainean sumatzen zuen, autoaren berezko dardararekin bat eginez. Sonia Gonzalez

---

enbragebako *izond* enbragerik ez duena.

Bizikleta edo gurdiren batekin gurutzatzean soilik balaztatzen zuen apur bat, azelerazio **enbragebakoen** bitartez oinezkoei arriskuaren berri emanez. Josu Landa

---

enbrioi *(ETCn **4.004** agerraldi)* **1** *iz* garapeneko lehen etapetan dagoen obulu ernaldua. ik**ernamuin; hozi**.

Enbrioia sortu eta 48 ordura zelulak zatitzen hasten dira eta bi edo lau zelulako **enbrioi** bat ikus daiteke. Berria - Gaiak

Animalia heldu baten egitura, hain zuzen, hura sorrarazi duen **enbrioiaren** garapenaren emaitza da. Juan Garzia

Egokiera ona zen **enbrioien** eta minbizien arteko erlazioa aztertzeko. Juan Garzia

Anfibioen **enbrioiak** ikertuak zituen lehenik. Juan Garzia

Gaixo batekin bateragarria ziren zelula amak sortu ahal izateko 30 **enbrioi** klonatu zituzten 242 obulu erabiliz. Berria - Gaiak

Zer parte hartzen dute, ernalkuntzaren aurretik, amaren geneek **enbrioiaren** eraikuntzan? Juan Garzia

Kartilagozkoak dira hezurren jatorrizko ereduak **enbrioiaren** lehen faseetan. Irene Aldasoro

Barrabilak eta obarioak parekoak dira; **enbrioiarengan** jatorri bera dute eta leku berean osatzen dira. Luis Elberdin

Aurkitu ziren hidrokarburo kontzentrazioak nahikoa ziren arrautza barruko **enbrioia** eta arrautza errun duen emea akabatzeko. Berria - Euskal Herria

Lege berriak **enbrioi**, obulu eta hazi emaileen erregistro bat sortzea aurreikusi du. Berria - Euskal Herria

Gizabanakoak klonatzea eta nortasun bereko milaka aleak ekoiztea azal zati batetik, **enbrioiak** in vitro fabrikatzea eta, batez ere, geneak manipulatzea eta munstroak sortzea. Juan Garzia

Enbrioien garapenean zehar gertaturiko eraldakuntza sarritan txiki-txikiei zor zaie aldea. Juan Garzia

Gaitzak sendatzeko, **enbrioietatik** lortutako zelula amak erabiltzeak ekarriko dituen osasun onurak nabarmentzeko kanpaina nazionala egin nahi du. Berria - Mundua

Enbrioien zelula amekin sendabideak egitea debekatzen dute Espainiako legeek. Berria - Euskal Herria

Enbrioiak aukeratu ahal izango dira gaixo dauden seme-alabak osatzeko. Berria - Euskal Herria

Bihotzik gabe "euthanasiaren" alde dira, bai eta abortuaren alde, eta beraz ahulenen kontra, mintza ez daitezkenen kontra, horien artean baitira **enbrioiak** eta umekiak, hozitzen eta handitzen ari den giza presunaren seinale nabariak. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Enbrioi goiztiarren zelulen antzekoa. Juan Garzia

Bere **enbrioi** ernalduak erabiltzea debekatu diote emakume bati. Berria - Gaiak

Enbrioi klonatuen ikerketan ere gezurra esan zuen Hwang Woo-suk zientzialariak. Berria - Gaiak

Zelula bat aztertuz gero, **enbrioi** osoaren ezaugarriak ezagutu daitezke **Enbrioi** osasuntsua txertatzen zaio gero emakumeari, uteroan. Berria - Gaiak

Enbrioi immunearen ziletik ateratako odol zelulak gaixoari txertatuta. Berria - Euskal Herria

Enbrioi klonikoen kasuan, ordea, arriskua txikiagoa dela diote adituek. Berria - Gaiak

Izozturiko **enbrioiak** adoptatzeko munduko lehen gunea aurkeztu dute. Berria - Gaiak

Sobraturiko **enbrioiak** soilik erabili ahalko dira, Frantzian in vitro sorturikoak eta izoztuak. Berria - Gaiak

Klonatutako **enbrioietako** zelula amak erabili nahi ditu diabetea sendatzeko. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lortua zuten **enbrioi**-tankerako zelula horiek bakartzea eta saio-hodietan mantentzea. Juan Garzia

Enbrioi-bizitzaren lehen urratsetatik geroko animaliaren plana bideratzen duten prozesuak. Juan Garzia

Enbrioi-geneen gidaritzapean, enbrioiaren gorputza, arrautza ernalduak irudikatua, hamar segmentutan banatuko da. Juan Garzia

Euli heldu baten sabela erabiltzen zuen, saio-hodi gisa, **enbrioi**-zelulak hazteko. Juan Garzia

Organismoak beren artean oso desberdinak izan arren, haien **enbrioi**-garapena gobernatzen duten geneak kideko dira guztiak. Juan Garzia

Inork ez du, baina, helburu estetikoekin egindako **enbrioi** hautatzearen alde hitz egin. Berria - Gaiak

Helburu terapeutikoekin egindako **enbrioi** aukeratzeari buruz. Berria - Gaiak

Umeak garatzeko bizi-egoera kaxkarrean dauden bikote nahiz emakumeen ume-gura; **enbrioi**-trafikoa. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gaur egun, badakigu geneen eta ingurunearen arteko eragin-truke etengabe baten bitartez gauzatzen dela giza **enbrioiaren** garapena. Juan Garzia

Badira hamar gene, HOM gene direlakoen saila osatzen dutenak, euli-**enbrioiaren** baitan kargua dutenak eratu berri diren segmentuen nortasuna zehazteko. Juan Garzia

Marmoken geneak txertatu zizkieten txerri **enbrioiei**. Berria - Gaiak

Sagu-**enbrioiaren** garapenari buruzko laborategi espezializatu batera. Juan Garzia

5 irud/hed ernamuina.

Giza sumisio modu ororen **enbrioia** baita familia: gizatasun partikular posible guziak, sortze beretik hipotekan hartzen dituen muintegia. Patziku Perurena

Manifestuak **enbrioi** egoeratik mundura jaiotzeko bidea hasi du jadanik. Berria - Kultura

Enbrioi-zibilizazio hau Erdialdeko Asiako historiaren bederatzi mendeko emaitza zen, denbora horretan arro honek bere bizitza propioa izan zuelarik funtzio bereziekin, merkataritza-bide handietan kokatua egon eta bertan greziar kolonizatzaile asko egotearen ondoriozko funtzioak. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diren enbrioiak (5); **dituzten enbrioiak** (4); **enbrioi bat** (9); **enbrioi baten** (4); **enbrioi garapena** (3); **enbrioi garapenaren** (3); **enbrioi hautatzea** (3); **enbrioi hautatzearen** (3); **enbrioi horiek** (5); **enbrioi horien** (3); **enbrioi klonatu** (4); **enbrioia emakume** (3); **enbrioia ezarri** (4); **enbrioia ezarri aurreko** (3); **enbrioiak aukeratu** (3); **enbrioiak erabiltzea** (3); **enbrioiak ez** (3); **enbrioiak klonatu** (3); **enbrioiak klonatzea** (4); **enbrioiak klonatzeko** (10); **enbrioiak klonatzeko baimena** (7); **enbrioiak sortu** (3); **enbrioiak sortu eta** (3); **enbrioiaren garapena** (8); **enbrioiaren garapenaren** (6); **enbrioiaren sexua** (3); **enbrioien duintasuna** (3); **enbrioien zelula** (15); **enbrioien zelula amak** (5); **enbrioien zelula amekin** (4); **enbrioien zelula amen** (5); **enbrioietako zelula** (28); **enbrioietako zelula ama** (3); **enbrioietako zelula amak** (8); **enbrioietako zelula amek** (3); **enbrioietako zelula amekin** (7); **enbrioietako zelula amen** (4); **enbrioietako zelula ametatik** (3); **enbrioietatik lortutako** (6); **enbrioietatik lortutako zelula** (6); **giza enbrioi** (11); **giza enbrioiak** (27); **giza enbrioiak klonatu** (3); **giza enbrioiak klonatzea** (4); **giza enbrioiak klonatzeko** (10); **giza enbrioiekin** (5); **giza enbrioien** (3); **giza enbrioietatik** (3); **klonatutako enbrioietako** (3); **klonatutako enbrioietako zelula** (3); **klonatutako enbrioietatik** (6); **klonatutako enbrioietatik lortutako** (5); **terapeutikorako giza enbrioiak** (4); **zuen enbrioiak** (3)

---

enbriologia *iz* biologiaren atala, enbrioiaren sortze eta garatzeaz ari dena.

Ataletan banaturiko jakintza-arlo bat izan da **enbriologia** luzaroan. Juan Garzia

Animalia baten **enbriologiak** haren genealogia errepikatzen duela. Josu Zabaleta

Erresuma Batuko Giza Ernalkuntza eta **Enbriologiarako** Agintaritzak erabilera terapeutikorako giza enbrioiak klonatzea onartu du. Berria - Gaiak

Minbizia izateko arriskua dakarten ezaugarri genetikoak atzemateko eskaria aztertuko du bihar Giza Ugalkortasun eta **Enbriologia** Agintaritzak. Berria - Gaiak

Erabat logikoa zen, bada, xeheki aztertzea han organismo haren genetika- eta **enbriologia**-alderdiak. Juan Garzia

Arrazoi horregatik, HFEA Erresuma Batuko Giza Ernalkuntzaren eta **Enbriologia** Arloko Agintaritzari giza enbrioiak klonatzeko baimena eskatuko diola jakinarazi zuen. Berria - Gaiak

---

enbriologo *iz* enbriologian aditua den pertsona.

Hadorn **enbriologoa** zen. Juan Garzia

Itxura batean adimenaren mugak gainditzen zituen metamorfosi sekulako hori nolabait azaltzeko, zenbait **enbriologok** halako bizi-indar edo bat aipatzen zuten, "garapen-printzipio" bat, fisikaren legeekin zerikusirik ez zuena. Juan Garzia

Bada galdera bat, aspalditik **enbriologoen** atsekabegarri dena: zer parte hartzen dute, ernalkuntzaren aurretik, amaren geneek enbrioiaren eraikuntzan? Juan Garzia

---

enbrionario *izond* enbrioiarena, enbrioiari dagokiona.

Parekideak dira, ehun **enbrionario** beretik sortuak, errezeptore berdinekin eta plazera emateko ahalmen berdinarekin. Luis Elberdin

Literatura momentu horretan **enbrionarioa** zen niretzat. Ana Urkiza

---

enbustekeria *iz* enbusteria, gezurkeria.

Gure herriak ez du merezi **enbustekerian** dabilen presidenterik, gure herriak bere hitzari eutsiko dion presidentea behar du. Patxi Zubizarreta

---

enbusteria *iz* gezurkeria.

Etxera natorrenean, beti edo gehienean, **enbusteriaz** engainatzen nau. J.M. Olaizola "Txiliku"

Enbusteria sentimentalen txanda, pentsatu nuen hasieran. Anjel Lertxundi

---

enbustero *izond* gezurtia.

-Enbustero hutsa haiz! -eta, haren irria are zabalagoa egiten zela, eratxiki zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

Enbustero hutsa haiz, bai, baina atsegin diat nolakoa haizen. Joan Mari Irigoien

---

enbutitu, enbuti, enbutitzen du *ad* zerbait beste zerbaiten barnean erabat hertsaturik gelditzen dela sartu.

Goio bere buzo barruan sarturik- **enbutiturik** - agorafobia probokatzeko moduko buruko soilunearekin, hestebete zurbil eta ezezagun bat bailitzan. Jon Alonso

---

enbutu ik **inbutu**.

---

enda **1** *iz* arraza.

Hegazti eta txori koloretsuen **endak**, gabiraiek, ugatzek eta itsas uhin gazietan jan eta bizi bila diharduten uherroiek, beste noiznahai oso hots bestelakoak jaulkitzen dituzte. Xabier Amuriza

Urteko eurialdi jakin batzuk gabe, lurrak ezingo luke fruitu gozorik eman, eta animaliek ere, jana kenduz gero, ezingo lukete eurer **endarik** zabaldu ez biziari eutsi. Xabier Amuriza

2 (hitz elkartuetan)

Eta lursailetan bizi zen giza **enda** hura gogorragoa zen, bidezko denez, lur gogorrak sortzen baitzuen. gauzainek oraintxe ere eusten diete ohitura hauei eta konpas motak eramaten ikasi dute, baina ez pentsa basa **enda** lurkume hark baino gozamen handiagoa hartzen dutenik. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enda eta (4); **eta enda** (5); **giza enda** (10)

---

endai *iz* pala.

Entzuten da arraunen zapla ur leunaren gainean, **endaien** plisti-plasta. Jon Alonso

Ardo-saltzaile asko greziarrak ziren, gizon lodiak, esku gorri haragitsuak, **endaiak** ziruditenak gehiago eskuak baino. Felipe Juaristi

---

endaitz *(orobat **endoitz** g.er.) iz* goldeek eta gurdiek aurrealdean, lor abereak lotzeko, duten haga edo haga parea.

Ikazkina zegoen atean, orga baten **endaitzak** esku banatan hartuta eta haserre. Anjel Lertxundi

Zabu egin eta gurdiaren **endaitzari** nola oratzen zion ikusi zuen laborariak. Karlos Zabala

Endaitzen arteko zaldia, beste biak baino handixeagoa eta gurdiaren ibilera zuzentzeko ardura zuena, trosta luze-luzean zihoan beti. Karlos Zabala

Erdiko zaldia, **endaitzen** artekoa, bidearen erdian ibil zitekeen, beste biek nork bere aldera lerrarazi gabe. Karlos Zabala

Ukuiluetatik gurdien **endaitzetara** itzuli ziren bizileku ibiltarietatik tiratzen zuten zaldi zahar hanka-motelak. Karlos Zabala

Egundoko arretaz miatzen zituen gurpilak, **endaitzak**, zaldien belarriak eta ezein autoreri sekula bururatuko ez litzaizkiokeen beste leku batzuk ere, non aduanetako funtzionarioei soilik baitzaie zilegi eskua sartzea. Jose Morales

Gurpilak, ardatzak, ziriak, gurtetxea, **endaitzak**, den-denak inguruetako zuhaitzekin eginak dira. Karlos Zabala

Hiruretan handiena bi **endaitz** luzeen artean atxikirik jarri zuen, **endaitz** mutur batetik bestera txilinez, zintzarriz eta mortxilez josítako uztai antzeko baten azpian -duga izenekoa-; eta beste biak tarantasaren pikabuztanetan estekaturik besterik gabe. Karlos Zabala

---

endekabide *iz* endekatzeko bidea.

Krapotkin hilaz nire **endekabide** moralaren arrazoia kenduko bainuen, orduan aukera izango nuke berriz gizon prestua izateko, nire bekatua garbitzeko eta, hala behar bazen, Golubtxik zintzo bat berriz bihurtzeko. Matías Múgica

---

endekapen **1** *iz* gorputzeko zelulen eta ehunen narritadura, eskuarki denbora pasatu ahala areagotuz doana; zerbaitek berezko nolakotasunak galtzea, okerragoa bilakatuz. ik **degenerazio**.

Prostituzioak gaixotasunera zaramatza, **endekapenera**; ezkontzak, berriz, arrunkeriara, erdipurdikokeriara. Josu Zabaleta

Esan ohi da erretinako beste arazo batzuk dituztenei -makularen **endekapena** adibidez-, izugarri jasanezina zaiela argia. Xabier Olarra

Ez zen sekula argitu ea gaixotasun akutuak eragin zion erretinetako lesio hori, ala erretinen **endekapena** sortzetikoa zen. Xabier Olarra

Barbaro bihurturiko herri primitiboen artean ohitura primitiboaren **endekapenaren** emaitzetako bat zera da, lehen ahaide-taldeek zerturiko agintea gero *comitatus*-ari ematen zaiola. Iñaki Mendiguren

Literatura berri bat sortzen ari da, Frantzian batik bat, Espainian min handia egiten duena, arraza germaniarren garaitasunaz eta arraza latindarren **endekapen** eta gainbeheraz. Joxe Azurmendi

Begiratzea, ikustea eta erreparatzea ikusmena erabiltzeko modu diferenteak dira, bakoitza bere intentsitatearekin, baita bere **endekapenekin** ere. Jon Alonso

Ikerketa honek bide emango du zelula amek erretinako **endekapenezko** gaitzak sendatzeko balio duten argitzeko. Berria - Gaiak

Zantzu horietako batzuk Alzheimerra moduko **endekapenezko** gaixotasunen aurrerapentzat jotzen ditu jendeak, bereziki adinean aurrera doazen heinean. Berria - Gaiak

Tiroidearen jarduera eskasak eragindako adimen urritasun sakonari deitzen zaio kretinismoa, eta **endekapen** fisikoarekin batera agertzen da gehienetan. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Talde horretako gaixoetan **endekapen** prozesua bost urtean atzeratzeko moduan izango gara. Berria - Gaiak

Endekapen garaiak izan ziren azkenekoak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

endekapen prozesua (3); **endekapenezko gaixotasun** (6); **endekapenezko gaixotasun askorentzako** (3); **endekapenezko gaixotasunen** (4); **endekapenezko gaixotasunen kontrako** (3); **makularen endekapena** (3)

---

endekasilabo *izond/iz* hamaika silaba dituena; hamaika silabako ahapaldi lerroa,

Nagusi den **endekasilabo** zuria bere horretan emateari gehitxo iritzirik, neurri erregularrik gabeko tirada hala ere bertso-taxuzkoetan eman ditugu halako pasarteak, tonuz ere aski bereizten direlakoan prosaikoagoetatik. Juan Garzia

---

endekatu, endeka, endekatzen **1** da/du *ad* gorputzeko zelulak eta ehunak gero eta areago narritatu; zerbaitek berezko nolakotasunak galdu, ezgaiago bilakatuz. ik **degeneratu**.

Endekaturik eta zurbildurik zegoen makula, eta erretina osoko odol-hodiak mehetuta. Xabier Olarra

Medikuntza mota berri honen xedea, birsorketarako medikuntza edo ehunen ingeniaritza deitu izan dena, **endekatutako** edo desagertutako zelulak ordezkatzeko, zelula berriak sortzea da. Berria - Gaiak

Inguru guztian erdarak kutsatutako haurraren hizkera atrofiatu, **endekatu** eta aldrebestua literatura bihurtzen asmatu zuen Koldo Izagirrek *Zergatik bai* liburuan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru sail horiei erreparatuz, bistan da, milaka grina eznatural eta ezbehar alferrik sortuz **endekatuko** eta hondatuko duela bere burua jendaje modernoak. Patziku Perurena

Honela hasi zen gatazka, hasieran agiri-gerra gisara, laster indarrezko gerra izatera **endekatu** zena. Iñaki Mendiguren

Badira garaipen batzuk goratzen zaituztenak, beste batzuek **endekatu** egiten zaituzte. Josu Zabaleta

Filosofiak fedea bere mendekotzat hartu nahiko balu, edo ordezkatu, erlijio hori eta berari dagokion fedea pobretu eta **endekatu** egingo lirateke, eta sasierlijio bihurtu, sasijainkoak sortuz. Askoren artean

Berdintasun printzipioa identikotasun printzipio bihurtuz **endekatu** zenean, orduan sartu zen demagogia. Josu Zabaleta

Biek ere biek **endekaturik** dute oroigailua. Edorta Jimenez

· Eraikina gero eta **endekatuago** dago, baina akademiako aretoak erakunde askorenak dira, eta horiek ez dira ados jartzen nork zer ordaindu behar duen erabakitzeko. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Zuen jeloskortasunak eta bekaizkeriak seme **endekatu** zaretela frogatzen du. Askoren artean

Zoro **endekatu** kexati bat, besterik ez. Fernando Rey

Arraza **endekatu** batek ustelen elitea bakarrik onesten dizu. Joxe Azurmendi

Egoera **endekatu** eta ustel horretan, gerraren absurdoa bere indar osoz agertzen da. Berria - Kultura

Homerok etengabe mesprezatzen zituen "egun **endekatu** hauetan bizi diren gizonak". Xabier Olarra

Gure eskuak zarpail eta ahul ziren aldi berean, **endekatuak**, sentiberatasunik gabeak. Juan Garzia

Ohitura primitibo eta ohitura **endekatuen** nahastea. Koldo Izagirre

Eguzki forma noble hartatik tenperatura apaleko bero forma **endekatu** horretara eraldatzen baita energia hori. Juan Garzia

---

endekatze *iz* gorputzeko zelulak eta ehunak gero eta areago narritatzea; zerbaitek berezko nolakotasunak galtzea, ezgaiago bilakatuz. ik **degenerazio**.

Harrezkero dena litzateke **endekatze** eta galera. Xabier Mendiguren Elizegi

Ba ote da, ez **endekatzeak**, ez ahuleriak, ez beldurrak, baizik-eta osasunak sortutako eromenik? Iñaki Segurola

Herrien nahasteak hizkuntzen arteko lehia eta nahasmenera eramaten du; hauetako batzuk "lingue franche" gisa barreiatzen dira, eta kasu guztietan haien hedapenak nolabaiteko **endekatzea** ekartzen du. Iñaki Mendiguren

Enpresak tamainako negozioa egitea bidezkoa du; ezin onartuzkoa dena, ordea, negozio horren kausaz edo ondorioz gizadiak osasuna galtzea, bizimodua **endekatzea**, bizitza moztea. Misterio neurtezin eta sakon bat baino ez dago honela batu ahal izateko harmonia minean eta erlijiosoan izakiaren **endekatze** sendagaitza eta kreazionearen gaztetasun betierekoa. Edorta Agirre

Terapia psikiatrikoz eta tresneria elektronikoz kontrolatzen gaituzten erlauntza garbi berrietara nik ikusten dudan alderik handiena, giltzadunen **endekatze** morala. Koldo Izagirre

Homeroren garaikideak **endekatze** etsenplu harrigarriak ziren: hamar behar ziren harkaitz bat jaso edo istilu bati hasiera emateko: Troiako heroietako edozeinek berak bakarrik egin zezaken gauza. Xabier Olarra

Cesar Telleria zur eta lur geratu zen gizakiaren **endekatzetik** sortu diren hari moztaile hauen berri izan zuenean. Harkaitz Cano

---

endelegamentu *iz* adimendua.

Ez zegoela hartarakotz deus ere hoberik pentsua eta **endelegamendua** dolorezko misterioren batean pausatzea baino. Joan Mari Irigoien

Benetan bizirik bizitzea, **endelegamenduz** eta erne, horra perila. Edorta Jimenez

Ahoa norberaren begiak dira eta sabela norberaren **endelegamendua**. Edorta Jimenez

Memoriaren eta **endelegamenduaren** saretik iragan. Joan Mari Irigoien

---

endelegarazi, endelegaraz, endelegarazten du *ad* ulertarazi.

Munduan diren berben artean diruarekin, armekin, jan-edanekin eta haragiaren minekin zerikusia dutenak izaten dira **endelegarazten** errazenak, edozein lengoaiatan, nahikoa izaten baita esku bat poltsikora sartu, dirua esateko, edo sabelera eroan, gosea adierazteko, edo hara beste tokira luzatu, haragi minez garela erakusteko. Edorta Jimenez

Itzuli ez dituan diruengatik, axolarik ez, gero! -esan zidan, jakanarrua ezkutatzen nuelako pozik, aitari, Basurtoko Joan Sanz ahaltsuari, azaldu beharrekoak berak azalduko zizkiola **endelegaraziz**. Edorta Jimenez

Ez duk beharrezkoa -esan zidan, harro, berarentzat Coruñak ezer ezkutukorik ez zuela **endelegarazteko** moduan. Edorta Jimenez

Atera begiratu nuen, haren beste aldean zegoen Bartolomek berak esana zidala **endelegarazteko** moduan. Edorta Jimenez

---

endelegatu, endelega, endelegatzen *(orobat **entelegatu** g.er. eta **endelgatu** g.er.)* da/du *ad* ulertu.

Ez nion dena **endelegatu**. Edorta Jimenez

Endelegatuko banu, iruditzen zait berorretan egia osoa ulertuko nukeela. Joan Mari Lekuona

Mundu hori ez zuen nehoiz **endelegatuko**. Itxaro Borda

Bazen, berriz, niri **endelegatzen** zail egiten zitzaidan xehetasun bat. Edorta Jimenez

Beste begi keinu bat egin zuen, eta hartan **endelegatu** nuen ez zidala ezer ulertzen. Edorta Jimenez

Orain erraiten dizut ezen don Frantzisko ez zela jakintsu, ez bederen hitz hori komunzki **endelegatzen** den moldean. Joan Mari Irigoien

Bretainera ez dakit, baina dena **endelegatzen** dut! Itxaro Borda

Egia esateko, gero eta nekezago zaizu irratiko mezuak **endelegatzea**. Lutxo Egia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

endelegatu ahal izan (6); **endelegatu ez** (5); **endelegatu ez arren** (3); **endelegatu ezinik** (5); **endelegatu nuen** (5); **endelegatzen dik** (6); **eta endelegatzen** (5); **eta endelegatzen dik** (4); **zuzen endelegatu** (3)

endelegatze *iz* ulertzea.

Munduaren **endelegatze** uneak segundo apurra baino ez dit irauten, baina aldi oroz xehakatzen nau. Itxaro Borda

endelegu *(orobat **entelegu** eta **endelgu**) iz* adimendua.

Endelegua duenak konta beza piztiaren zenbakia. Itxaro Borda

Gerta badaiteke beheko epaileak goikoak baino **endelegu** hobea izatea, eta haren iritzia arrazoiarekin baterago etortzea.Gerta badaiteke beheko epaileak goikoak baino **endelegu** hobea izatea, eta haren iritzia arrazoiarekin baterago etortzea. Patziku Perurena

Adimenotako bat, gugandik hurbilena, **endelegu** egilea da, lurrarentzat eta gizateriarentzat garrantzi erabakigarria duena. Xabier Kintana

Berari esker, sortzetik dugun **endelegu** potentziala aktualizatu egiten dugu. Xabier Kintana

Begieste mistikoan biziki trebatuz utz itzak alde batera zentzumenak eta **endelguaren** jardunak eta sentigarria eta adigarria den guztia eta [...] gora hadi ezjakintasunean funts oro eta ezagutza oro gainditzen dituen harekin batasuna lortu arte. Joan Mari Lekuona

Morala eta Kritika ez dira propioki **enteleguaren** objektu, gustuarenak eta sentimentuarenak diren hainbatean. Patziku Perurena

endelgatu ik **endelegatu**.

endelgu ik **endelegu**.

endelu *iz* funtsik gabekoa.

gure euskara, euskara landu hori, sarriegi ahul eta **endelua** da, indarrik gabea eta motela, hitsa eta zuhaila, batasunaren izenean batu behar direnak eta ez direnak batu ditugulako Pello Salaburu

endemas *adlag* batez ere; areago.

Horrek xoratzen du, **endemas** jende xoxoa: [...]. Patziku Perurena

Aiton amonak **endemas**, baina, sasoikoak ere ez gutxi. Patziku Perurena

Honek noski, agotak dakarzki gogora, **endemas** Baztan aldekotzat joak, eta maiz jitoekin nahastuak. eskean egiteko gure modu horrek, noski, oraindik ederki nabari du, **endemas** Fraintzi aldetik, errames bidea aitzaki, sartutako gizajo itxurako jende talde alderrai, alproja, engainadore haien kutsu negartia. Patziku Perurena

Eta nongoa da Orentzero, **endemas** aldeotako baso oihantsu, burniola zahar, eta ikazleku oparoenetakoa ez bada?Jean Genet-engana gogotsuago eta kalakariago agertuko zela pentsatu zuen, eta hark, **endemas**, ez zion errietarik egingo. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta endemas** (3)

endemiko **1** *izond* eritasunez mintzatuz, lurralde batean ohikoa dena.

Elephantiasisa gaitz **endemikoa** da munduko 32 herrialdetan; munduko 35 herrialde pobreenetako 32tan, beste era batera esanda. Berria - Gaiak

Polioa gaur egun munduko lau herrialdetan bakarrik da eritasun **endemikoa**. Berria - Gaiak

2005ean birusa **endemikotzat** jo zuten, baina aurten ez da oraindik hildakorik egon. Berria - Gaiak

Malaria Tropiko Azpiko 102 herrietan hedatzen da, eta Afrikako Sahara Azpiko 45 herritan (hemen biltzen dira gaixoen artetik % 90), Hego Ameriketako zenbait herritan, eta Asiako beste zortzitan **endemiko** bihurtu da. Pello Salaburu

Normalean umetan agertzen da gaitza, eta munduko leku askotan **endemikoa** da, OMEren arabera. Berria - Gaiak

Ez dago "bat bitan banatzea" euskal herritarron gaitz **endemikotzat** jo ez duen orojakilerik. Iñigo Aranbarri

Compaore presidenteak, alta, «langabezia **endemikoa**» dela eta, ondorioz, ezin dela makroekonomiaren egonkortasuna bermatu erantzun zion Somaviari. Berria - Mundua

Zenbait kasu **endemikorengatik** inor ez zen askorik larrituko, denetara ohitzen da jendea. Jon Alonso

2 abere eta landareez mintzatuz, eskualde edo lurralde batean berezkoa dena.

Mediterraneo inguruko ibaietako espezie **endemikoen** %56 galtzeko zorian dira. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **endemikoa da** (5); **gaitz endemikoa** (6); **gaitz endemikoa da** (4)

endetxa *iz* bost, sei edo zazpi silabako kanta edo olerkia, gai goibelekoa.

Zuhurra eta onargarria al zen pentsatzea akabatu egin nahi nindutela nire ipuin erromantiko edo **endetxa** edo serbentesio edo liren kausaz? Karlos Linazasoro

endibia *iz* atxikoria mota, modu berezian lantzen dena, eta batez ere entsaladetan erabiltzen dena.

Entsalada handi bat ari da atontzen Luzia, hau dun ene jakirik gogokoena, esan berri dio Lucyri: letxuga, tomatea, tipula, piper berdea, arrautza egosia **endibiak**, azenarioa, atuna, esparragoak, artoa eta aguakatea, izugarri gustatzen zaidan. Joxemari Iturralde

endogamia **1** *iz* talde, etorki edo arraza bereko pertsonen arteko ezkontza.

Askorentzat snob bat zen, zenbaitentzat odolkidetasunak eta **endogamiak** ahuldutako sasi-aristokrazia leinu baten azken alea. Jon Alonso

Tsarraren semea, Alexis tsarevitxa, hemofilikoa zen, hau da, emakumeek transmititu eta gizonezkoek -erregeen edo **endogamia** handiko beste zenbait familiatan usualki-pairatzen duten gaixotasuna zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Irletako edo zenbait eskualdetako **«endogamia»** izan liteke zio hori, «suizidiorako joera jarauntsi egin bailiteke». Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Asko hitz egin da **endogamiaz** ere, euskal literaturak daukan kanpora atera beharraz. Ana Urkiza

Egia da Espainiako unibertsitateetan **endogamia** gertatu dela, horrela definitzen baldin badugu **endogamia**, prozedura hori erabiliz etxeko jendea kontratatzea sistematikoki alegia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Endogamia dago irakaskuntzakoak ez diren enpresa guztietan, eredugarrienetan ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

endogamiko *izond* endogamiari dagokiona.

Nazioaren garapenerako «sinergia berriak» sortu behar direla eta «ikuspegi **endogamikoak** apurtu» beharra dagoela iritzi zion Sotok. Berria - Euskal Herria

Norbaitek pentsatzen du unibertsitate pribatuak ez direla **endogamikoak**? Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ezagutzen du inork **endogamikoa** ez den enpresarik? Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nahitaez, eskolak euskaraz ere eman nahi baldin baditugu, euskara unibertsitatean egiaz erabili nahi baldin badugu, **endogamikoak** izatera bortxatuak gaude, ezinbestean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Datuak horiek dira, eta normala da, datu horiekin, ondorioak **endogamikoak** izatea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

endogeneizatu, endogeneiza, endogeneizatzen du *ad* endogeno bihurtu.

Azpigarapenetik ateratzeko baldintza nagusietako bat, beraz, aurrerabide teknikoa **"endogeneizatzea"** izaten da. Koro Navarro

---

endogeno *izond* barnean sortzen dena; barne kausengatik gertatzen dena.

Bi arazo mota daude gaur egun kolektibo horretan: arazo **endogenoak** eta exogenoak. Berria - Euskal Herria

Faktore **endogenoak** garatu ditu, beraz, izugarrizko gaitasunarekin. Berria - Harian

Nahaste psikotikoekin edo nahaste depresibo **endogenoekin** alderatuz, esaterako, garbi ikusten da hori: anorexia eta bulimia kasu askoren oinarrian aldaera genetiko bat dago, baina ez dira gaitz hereditarioak. Berria - Gaiak

70eko hamarkadaren erdialdera ikerketek gora egin eta 80koaren hasieran cannabinoide **endogeno** batzuk eta euren hartzaile espezifikoak aurkitu ziren. Berria - Harian

Oinarrizkoena falta zaio, nahimen eta ekimen **endogenoaren** nahikotasun maila. Txema Ramirez de la Piscina

---

endoitz ik **endaitz**.

---

endokrino 1 *izond* barne sekrezioei dagokiena; glandulez eta kidekoez mintzatuz, bere jarioa zuzenean odolera isurtzen duena.

Beste batzuen ikuspegitik, berriz, ondoezak jatorri biologikoa, **endokrinoa**, guruinetakoa, organiko-funtzionala luke. Iñaki Iñurrieta

Guruin **endokrinoak** hormonak sortu eta odolean isurtzen ditu. Berria - Gaiak

Beste gai batzuek sistema **endokrinoari** eragiten dioten gaiak dituzte. Berria - Gaiak

Minbiziez gain, hesteetako arazoak, bihotz eta zirkulazio gaitzak, arazo **endokrinoak**, erreaktoreko partikulek eragindako arnas bideetako gaitzak eta, batez ere, immunitate sistemako kalteak hartu dituzte kontuan. Berria - Gaiak

2 endokrinologoa.

Etxera itzuli zenean, **endokrino** batengana eraman zuen amak. Berria - Euskal Herria

Lehendabizi, **endokrinoak** txosten bat egin behar du, eta bertan ebakuntza beharrezkoa dela ziurtatu behar du. Berria - Euskal Herria

Talde edo unitate horiek lehen aipatutako hiru medikuek osatuko dituzte, hau da, podologoek, **endokrinoek** eta kardiologoek. Berria - Gaiak

Neurozirujauak, **endokrinoak**, psikiatrak, psikoanalistak eta baita argiketariak ere lanean jarri ziren, betiere zientziaren izenean eta haiek "osatzeko" asmo jatorra tarteko zela. Luis Elberdin

Pedro Martul **endokrinoak** gero eta kasu gehiago aztertu ditu azken urteotan, inoiz baino larriagoak. Berria - Harian

---

endokrinologia *iz* medikuntzaren atala, guruin endokrinoak eta horien sekrezioak aztertzen dituena.

Endokrinologia Zerbitzuko buru Sonia Gaztanbidek azaldu zuen kasu honen sorburua Gurutzetako Ospitaleko Haur-**Endokrinologia** Sailburua. Berria - Gaiak

---

endokrinologo *iz* endokrinologian aditua den medikua.

Cristina Azcona **endokrinologo** pediatrikoa izan zen hizlarietako bat. Berria - Gaiak

---

endoktrinatze *iz* doktrinatzea.

Bertan hasten zen **endoktrinatze** sail berria, Frantziak zergatik oldartuak borrokatzen zituen sakon, fermu eta zabal irakatsiz, psikologikoki berregituratu talde azkarra osatuz eta azkenik, barnetik heziak izan ondoan, batzuetan nehoiz etortzen ez zen askatasunaren parpaila begien menean inarrosten zitzaien. Itxaro Borda

---

endometrio *iz* uteroko muki mintza.

Obulua ernaldu ez denez, estrogeno eta progesterona hormonen kopurua jaitsi egiten da, umetokiko paretak (**endometrioak**) ezin dio eutsi eta odola kanporatu egiten da. Luis Elberdin

Gehiago ere bada oraindik: arrautza uterora iritsiko balitz ere, ezingo litzateke umetokiko paretetan (**endometrioan**) geratu. Luis Elberdin

Zikloaren hasieratik **endometrioa** odolez betetzen joaten da, ernalketa gertatuz gero haurdunaldia prestatzen joateko. Luis Elberdin

---

endometriosis *iz* endometrioaren hantura.

AEB Ameriketako Estatu Batuetako zientzialarien esanetan, Letrozolek, minbizia sendatzeko erabiltzen den botikak, **endometriosisak** eragiten dituen sintomak gutxitu ditzake. Berria - Gaiak

Endometriosis gaitzaren oinazeak arintzen dituen botika. Berria - Gaiak

---

endomorfina ik **endorfina**.

---

endomorphina ik **endorfina**.

---

endore *(orobat **hendore**) iz* alkatea.

Iurreko **endorea** ezizenarekin, Parisetik idatzi zuen aurrena, eta Capbretondik ondoren. Berria - Kultura

Horregatik, herriska xoragarriok turismo komertzial hutsez erabat ergeltzera doazenean, gure gogoari eta bihotzari bizirik eutsiko dioten **hendoreen** eta herritarren hutsa sumatzen dut ariman. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iurreko endorea** (3)

---

endorfina *(orobat **endomorfina** eta **endomorphina**) iz* guruin pituitarioak eta hipotalamoak jariatzen duten hormona, analgesiko gisa aritzen dena.

Lepoa moztu eta handik 8 segundora, **endorfinak** askatzen dira; oinazerik gabe hiltzen da animalia. Xabier Olarra

Kirola egitean, adrenalina bota ondoren, konpensatzeko, **endorfinak** isurtzen ditugu, halako lasaitasun-sentsazio bat ematen dutenak; eta sexurako gogoa ere bai batzuetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Endorfinengatik da hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Endorfinak eragiten ditu eta autoestimua areagotzen du; hobeto egoten laguntzen digu, alaiago eta indarrez beteak. Jende anitzek eskas genituen adrenalina, **endomorfina** eta serotonina pastillak farmazietan saltzen zirelakoa ona zen. Luis Elberdin

Apuñatik isuri **endomorphina** ttanttak premiazkoak zitzaizkidala sinetsiz, ahurrak sabelpera bideratu nituen. Itxaro Borda

---

endosamendu *iz* norbaiti kreditu dokumentu edo kideko bat igortzea, atzealdean ohartarazten dena.

Finantza-teknikak, aldiz, truke-letrak eta **endosamenduak** zabaldu zirelarik, hobetu egin ziren. Koro Navarro

---

endoskopia *(orobat **endoskopio**) iz* organismoaren barne organoak aztertzea, bisualki esploratzeko gailu baten bidez.

Errebisioak egin beharko ditugu hilero, **endoskopioa**, badakizu. Hasier Etxeberria

Harritzen zuen beste gauza bat, Aldabaren patxada zen: elkarrizketa arruntarekin jarraitzen zuen **endoskopioa** egin bitartean. Hasier Etxeberria

Bi astean behin egiten diola bisita Poliklinikako medikuari **endoskopioa** egin diezaion. Hasier Etxeberria

Medikuek **endoskopia** bat egin zioten presidenteari eta ez duela ospitalera joateko beharrik esan zuten. Berria - Mundua

Guztiz lokartu genituen, baina **endoskopia** teknika askotan erabiltzen da egun anestesia hori. Berria - Gaiak

---

endoskopiko *izond* endoskopiari dagokiona.

Laparoskopia bat egitea barrunbe abdominaleko azterketa **endoskopiko** bat egitea da berez. Berria - Gaiak

Prostataren handitze fisiologikoa sendatzeko bi kirurgia teknika erabiltzen ziren orain arte: Kirurgia **endoskopikoa** (RTU) edo prostatektomia irekia kirurgia irekia deitzen dutena. Berria - Gaiak

Sudurreko kirurgia **endoskopikoa** egiten ari garenean. Berria - Gaiak

Euskal Herriko osasun zerbitzu publikoak ez du oraingoz bihotzerre kronikoa kentzeko teknika **endoskopiko** hori eskaintzen. Berria - Gaiak

---

endoskopio ik **endoskopia**.

---

endotelio *iz* zelula lauzko geruza bakar batez osaturiko ehuna, bihotza, odol basoak eta beste estaltzen dituena.• (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikerketa honen berezitasuna beste bat da; hain zuzen ere, baso **endotelioaren** garatzea oztopatzen duen mekanismoa da Madrilgo ikertzaileek frogatu dutena. Berria - Gaiak

VEFG proteina baso **endotelioa** haztearen faktore nagusia da. Berria - Gaiak

---

endreamakil ik **endredamakila**.

---

endredamakila *(corpusean **endreda-makila** eta **endreamakila** soilik) izond* endredatzailea.

Gure gizarte honek badu afizio bitxi propiala, abildadea uste dut dela, astindu-puntturen bat dagoen tokian, hantxe begiak ipini eta **endreda-makilaren** lanak egitekoa, horixe afizioa! Pello Zabala

Feministaren erradikalen diskurtso topikoa, Helena **endreda-makilak** kutsatua. Patxi Iturritegi

Altube **endredamakila** hutsa da Orereta Ikastolako soinketa irakaslea. Berria - Kirola

Botilaren sistema errepublikarra da azken batean, guztiz nahaspilatzailea **endredamakila** barraban. Lutxo Egia

Argi esan ohi da, bai, zarpail eta **endreamakil** dabilenean: Hegoaize honek ebitara izango du akaberea. Pello Zabala

Tartean badira matxinsaltoak, batetik bestera bazterrak nahasten dabiltzan **endreda-makilak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta zu **"endredamakila** bat", bere aferetan sudurra sartzen segituz gero zeure neurriko zapata aurkituko zenuena. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **endreda makila** (3)

---

endredatu, endreda, endredatzen *(orobat **endredau** g.er. eta **endregatu** g.er.)* **1** da/du *ad* katramilatu, nahasi, bazterrak nahasten ibili.

Eta guztiz **endredatuta** nagoenean problemaren amaraunean, tak!, deskuiduan bezala, bere desira ezkutua adierazten dizu naturaltasun osoz. Patxi Iturritegi

Emakumea excursus luze batean **endredatu** zen. Iban Zaldua

Osaba Gradelle ernegatu zen, ondo egina zegoela esan zuen, kirten handi horrek zertan **endredatu** behar zuen gizatxar errepublikazaleekin. Karlos Zabala

Goizean, batera esnatu dira biak, oraindik elkarren besoetan **endredatuta**, nagi eta zoriontsu. Patxi Iturritegi

Gogoa dugunean, hirurak **endredatzen** gara, eta neskak, nahiz eta Paulo Henriquerekin txoratua egon, nirekin ere txoratua dagoela esaten du, dena primeran dago. Karlos Zabala

Aurrera joan ahala, gizonaren azalpena **endredatuz** doa, nahastuz. Patxi Iturritegi

Aurrelariak, aldiz, motelagoak eta mugitzeko zailagoak aukeratu zituen, aurreko koadroetan **endredatzeko** egokiak. Berria - Kirola

Eta ama, ileak **endredaturik**, saia bi eskuez paparrean estutzen, babesik gabe, atzeranzka. Joseba Sarrionandia

Errazagoa izaten da horrelakoetan biak **endredatzea** bat bakarra baino. Karlos Zabala

Baina, ez gaitzatela **endredatu**! Pello Zabala

Bakea puskatu eta bazterrak **endredatzen** dituzten mingain-gaiztoen aurka ari da Asteasuko erretorea. Pello Zabala

Ahuntzak neke-aztarna guztiak galdu eta pozik gainezka balira bezala hasten ziren salto eta brinko, bazter guztiak **endredatu** beharrean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zer uste duzu, eskubidea duzula inoren bizitza horrela **endredatzeko**? Anjel Lertxundi

Ana Isabel Moralesek istorio kafkiar baten matazan **endredatzen** gaitu eta, irakurlea estu hartu ostean, irribarrea marrazten dio ipuina amaitutakoan. Berria - Kultura

Hire ama **endredatu** egin zian, askorekin egin zuen moduan. Juan Garzia

Zereginetatik libre gelditu ezkero, zer egin asmatu beharrean aurkitzen da gizabanako librea, eta asmatu ezinik ere bai frankotan, baina zerbait asmatu egin behar bere buruarekin edo itzalarekin **endredatzen** eta narrasten hasiko ez bada. Iñaki Segurola

Armairua goitik behera **endredatu** eta arropetako poltsikoei buelta eman zien. Julen Gabiria

2 (maitasun kontuetan edo)

Bi hilabete egin zituen gure etxean elementuak, bere ikasle batekin **endredatu** zen arte. Iban Zaldua

Lankide guztiek errepikatu zioten behin eta berriro, nagusiarekin **endredatzea** ez zela parte oneko kontua. Iban Zaldua

Beti dabil auzoko neskatxekin **endredatua**, alproja hori. Karlos Zabala

Elkarrekin **endredatuta** ibili ziren garaian halako gosariak egiten baitzituzten Edurnek eta biek. Iban Zaldua

Emakumeak, baita pentsamolderik estuenekoak ere, ez dira aspaldi sentitzen errudunak txikitan beste neska batzuekin **endredatu** zirelako, oroitu ere ez dira egiten. Karlos Zabala

Berriro **endredatu** zela antzinako mutilagun harekin: egurtzen zuen harekin. Berria - Kultura

3 (era burutua izenondo gisa)

Sare **endredatua** osatzen zuten lerro zikinen azpian desagertzen ikusi zuen bere aurpegia. Jasone Osoro

Amestutakoa, entzundakoa, bizi izandakoa, imajinatutakoa, denak gordetzen ditugu batera, lurpeko sustrai **endredatuak** bezala, eta oroitzen duguna bakarrik da geratzen dena, gure bizitzaren laburpen moduko bat. Ana Urkiza

Paretik gazte lodikote bat pasa berri zen, txima **endredatu** koipetsuek estaltzen zioten antiparra biribil batzuk nabarmentzen ziren aurpegia. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta endredatu (3)

---

endredatzaile *izond* endredatzen duena.

Ur gezaren ibilera nekatua aztoratzera itsasotik zetozen olatuek, airean zebiltzan kaio **endredatzaileek** Monika ekartzen zidaten gogora. Joxean Agirre

-Ez dun bereziki **endredatzailea** edo antzeko zerbait. Fernando Morillo

Eta izen-abizenak ere oker handirik gabe esango genituzke, banaka-banaka, sei **endredatzaile** horienak, hemen denek ezagutzen dugu-eta elkar! Karlos Linazasoro

Ea ikasten duzun zeure larrutik, **endredatzailea** halakoa! Felipe Juaristi

Hegoa normalean gehiena, zeharhaize aldaize hego-mendebal zarpail eta lardaxkero astinzalea ibili ohi baita sarri, fanfarroi jo ohi du zenbait egunetan; udazken aldian kalmoxo-kalmoxo egon eta gero jaikitzen da **endredatzaile**. Pello Zabala

---

endredau ik **endredatu**.

---

endredo *(orobat **endredu** g.er. eta **endregu** g.er.)* **1** iz nahastea, katramila.

Poliziak harrapatzen baditu, beste lagun asko ere eroriko dira **endredo** horretan. Karlos Zabala

Amonaren esanetan, aitak zauritua zangan utzi izan balu, frantsesek bertan garbituko zuten, atxilotu elbarriek eta gaixoek **endredoa** besterik ez baitute ekartzen. Anjel Lertxundi

Barkatu **endredoa**... garai zailak bizi ditugu... Anjel Lertxundi

Lantokia berriro aldatzea **endredoa** izango zen ordea bankuarentzat, eta Iruñean gelditzea erabaki nuen beste bolada baterako. Xabier Mendiguren Elizegi

Damu dut zuri hainbeste **endredo** sorrarazi izana. Mirentxu Larrañaga

Ez nion **endredorik** sortu nahi, banekien berriro elkartzeak buruhausteak ekarriko zizkigula, batez ere berari. Anjel Lertxundi

Burua berriz berotzen badizu, bere **endredoetan** apurrik ere nahasten bagaitu, bota egingo dut hemendik ezeren gupidarik gabe. Karlos Zabala

XVIII-XIX. mendeek **endredo** askoz gutxiago eta ttikiagoak ekarri zituztela ikusten dugu klimatologiaren orrialdeotan. Pello Zabala

Sosik ez diot inori zor, inolako **endredotan** ez naiz sartzen. Karlos Zabala

Angelori ez zion berebiziko **endredorik** sortu nik lanari uko egin izanak. Anjel Lertxundi

2 (hitz elkartuetan)

Hain zuzen ere, nik esango nuke plazer bi atera daitezkeela testu honetatik: Diderot pertsona eta filosofo moduan ezagutzearena eta **endredo**-komedia eder bat ikustearena. Berria - Kultura

· Ut! eta ut! buru-**endredoa** eta alferrikako kezka beste deus ez dakarkigun bizitza espirituala. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
endredoa besterik ez (3); **endredorik sortu** (3)

---

endredoso *izond adkor* endredatzailea.

Edozein filmetako eszenarik deigarrienari ez deutso zorrik soinu bakarraren multiplikazino **endredoso** honek. Xabier Amuriza

---

endredu ik **endredo**.

---

endregatu ik **endredatu**.

---

endregu ik **endredo**.

---

endrezera *iz* aldea, alderdia.

Zin degizut, jaun André, hain baita handia gizonon ergeltasuna, baldin beldurra eta sinesberatasuna ehun berean bilbatzen eta irazkitzen badira eta gorputz-arimetako **endrezera**, juntura eta parte guztietarat hedatzen! Joan Mari Irigoien

Hain bainengoen neure pena hartan dolorezki penaturik, eta hain bainengoen, halaber, neure gorputzeko parte eta **endrezera** guztietan gogorturik eta gozakaizturik. Joan Mari Irigoien

Eta, baldin parte eta **endrezera** hauetan paradisurik bada, indiar gorrien lurretan behar dik. Joan Mari Irigoien

---

endrezu *iz* zerbitzua.

Potosirat joan gabe ere, badirela Santo Tomáseko asentamenduaren ondoan etxaldeak edo haziendak, batik bat behi-aziendaren hazkuntzari emanak eta zureak bezalako beso indartsuen beharrean daudenak, beren ondasunen begiratzeko eta ordenaren ezartzeko, eta nagusi haietarik bati eskain diezazkiokezula zeure zerbitzuak eta **endrezuak**. Joan Mari Irigoien

---

endrina *iz*

Endrina: Arratoien eta beste karraskarien kontra soroetan erabiltzen den pestizida. Berria - Gaiak

Aldrina, klordanoa, DDTa, dieldrina, **endrina**, heptakloroa eta fosfato organikoak dira horietako batzuk. Berria - Gaiak

---

endroke *iz* xake jokoan, erregea eta dorrea aldi berean mugitzea, dorrea erregearen beste aldean ipiniz.

-To -esan zuen-, saltsa ederrean sartuko nauk, nik uste, **endrokea** egiten ez badut. Joxe Austin Arrieta

Xake partidako mugimendu guztiak aurrez zekizkien igarlea zen, erregea arriskuan zegoenean dorrearekin ordezkatzen zuen **endroke** egilea, kasualidade urrunetara gidatzen zuten ate guztietako maratilaren jabea. Harkaitz Cano

- **Endroke**! Xabier Etxabe

---

enduro *iz* motoziklismo mota, rallie estilokoa.

Gainera, besoak indartzeko **enduro** eta motokrosean aritu zen. Berria - Kirola

---

endurtu, endur, endurtzen *(orobat **enturtu** g.er.)* **1** da/du *ad* gutxitu, ahitu.

Endurtzen ari garen apezok xaharrez husten ari diren herriek eskatzen gaituzte, ehorzketetako. Piarres Aintziart

Atzoko apez belaunaldiak **endurtzera** doaz. Piarres Aintziart

Beldurra **endurtzen** ari zait emeki-emeki. Piarres Aintziart

Kristo bera, bere haragian, Absolutu huts batean **endurtua** zen, desagerturik. Piarres Aintziart

Orain dela 25-30 bat urte herri hau euskaltzaletasunak bete-betean jo zuenean, euskaltegiak han-hemenka hasi ziren hazten halako moldez non bai baitzirudien indar haren bizkortasuna ez zela inoiz ere **endurtuko**. Pello Salaburu

Ur zikinen biltzeko lanak ere larrienak eginak dira, gelditzen da bereziki ur higatu horien **endurtzeko** gunearen antolatzea. Herria

Liburuari lotua den hostoño batek oroitarazten dauku ere itsasorat nola nahika botatzen dena ez dela behin eta behin **enturtzen** edo galtzen. Herria

2 tamaina eta bizitasuna gutxitu; garapena gelditu. ik **atrofiatu**.

Hatzak ari zaizkit **endurtzen**. Karlos Linazasoro

Hori hitzak herdoiltzea da eta **endurtzea**; hori hitzak etsipen triste batera kondenatzea da, ideia eta kontzeptu merke edo salduenen etsipen ezinago tristera. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ari zaizkit endurtzen (3)

---

ene *(**9.276** agerraldi, **215** liburu eta **1.057** artikulutan; ETCn **39.949** agerraldi)* **1** *izlag* nirea; *interj* ustekabea edo larritasuna adierazten duen hitza. *(ikus beheko konbinatorian* ene *hitzaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

ai ene (165); **ari nintzen ene** (7); **bada ene** (8); **bai ene** (11); **baina ene** (63); **bainan ene** (10); **baita ene** (19); **baitzen ene** (21); **baitzuen ene** (7); **bat ene** (20); **batean ene** (7); **beraz ene** (7); **beti ene** (10); **beza ene** (8); **da ene** (108); **dela ene** (12); **den ene** (12); **diot ene** (16); **dira ene** (25); **ditudan ene** (7); **ditut ene** (15); **du ene** (22); **duk ene** (15); **dut ene** (72); **dut ene burua** (7); **dute ene** (11); **duzu ene** (14); **duzue ene** (7); **edo ene** (11); **ehortzi ezazue ene** (8)

ene aburuz (16); **ene adineko** (8); **ene adiskide** (26); **ene adiskidea** (8); **ene ahizpa** (11); **ene aingerua** (9); **ene aita** (71); **ene aitak** (7); **ene aitaren** (13); **ene aitatxi** (13); **ene aitzinean** (27); **ene alaba** (29); **ene alde** (13); **ene aldetik** (14); **ene ama** (36); **ene amak** (12); **ene amaren** (10); **ene amets** (8); **ene ametsa** (14); **ene anaia** (79); **ene anaia maite** (7); **ene anaiaren** (7); **ene anaiok** (21); **ene andere** (7); **ene andrea** (11); **ene apez** (7); **ene arima** (29); **ene arimak** (12); **ene arimak jauna** (7); **ene arimaren** (13); **ene arrangura** (7); **ene arreba** (31); **ene artzain** (11); **ene artzain etxolak** (11); **ene aspaldiko** (7); **ene atean** (8); **ene aurka** (11); **ene aurpegia** (7); **ene aurrean** (13); **ene azken** (16); **ene bada** (64); **ene baitako** (8); **ene baitan** (148); **ene baitan egin** (10); **ene barne** (7); **ene barrena** (8); **ene begi** (12); **ene begiak** (14); **ene begiek** (14); **ene begien** (20); **ene beha** (10); **ene bi** (13); **ene bihotz** (13); **ene bihotza** (58); **ene bihotza wounded** (8); **ene bihotzak** (15); **ene bihotzaren** (15); **ene bihotzean** (21); **ene bihotzeko** (26); **ene bila** (7); **ene bizi** (20); **ene bizia** (24); **ene bizian** (13); **ene biziaren** (12); **ene biziko** (15); **ene bizitza** (15); **ene bizitzako** (9); **ene bizitzan** (10); **ene block** (7); **ene burua** (62); **ene buruaren** (11); **ene buruari** (24); **ene buruaz** (10); **ene dama** (9)

ene eginbidea (7); **ene emazte** (11); **ene emaztegaia** (7); **ene errege** (54); **ene errege jauna** (30); **ene erregina** (7); **ene esku** (12); **ene etorkizuna** (7); **ene etxean** (7); **ene etxeko** (7); **ene gain** (12); **ene gainean** (7); **ene gazte** (7); **ene gogoa** (17); **ene gogoan** (11); **ene gorputz** (11); **ene gorputza** (16); **ene gorputzaren** (7); **ene gustuko** (22);

ene harridura (8); **ene haur** (9); **ene haurra** (9); **ene haurrak** (9); **ene haurtzaroko** (9); **ene helburua** (7); **ene herri** (40); **ene herri israelen** (9); **ene herria** (16); **ene herrian** (7); **ene herriaren** (12); **ene herriari** (7); **ene hitza** (9); **ene hitzak** (19); **ene hitzak aditu** (7)

ene iduriko (56); **ene iloba** (9); **ene indar** (8); **ene inguruan** (21); **ene iritzia** (7); **ene iritziz** (10); **ene irudiko** (11); **ene izena** (11); **ene jainko** (167); **ene jainko jauna** (9); **ene jainkoa** (130); **ene jainkoari** (7); **ene jaun** (43); **ene jaun eta** (8); **ene jauna** (148); **ene jaunari** (10); **ene jaungoiko** (16); **ene jesus** (20); **ene kapitaina** (7); **ene kontra** (7); **ene kuttuna** (7); **ene kutuna** (12); **ene lagun** (51); **ene laguna** (32); **ene lagunak** (25); **ene lagunok** (19); **ene lana** (10); **ene laztana** (42); **ene lehen** (33); **ene liburu** (7); **ene maite** (16); **ene maitea** (83); **ene maiteok** (25); **ene nagusia** (9)

ene ondoan (37); **ene ondotik** (11); **ene osaba** (11); **ene partetik** (13); **ene pasha** (7); **ene pena** (10); **ene printze** (9); **ene seme** (149); **ene seme alabok** (8); **ene semea** (13); **ene semeok** (8); **ene senideok** (8); **ene uste** (21); **ene uste apalean** (12); **ene ustez** (181); **ene xedea** (12); **ene zerbitzari** (14)

ere ene (36); **eta ene** (390); **eta ene arimaren** (7); **eta ene ustez** (9); **eta zeren ene** (7); **ez da ene** (14); **ez dut ene** (9); **ez ene** (15); **ez nuen ene** (8); **ez zen ene** (7); **ezazue ene** (10); **ezazue ene bihotza** (8); **ezen ene** (30); **gero ene** (10); **hamlet ene** (8); **hartan ene** (7); **hau da ene** (9); **hau ene** (9); **hemen ene** (9); **hori ene** (12); **horra ene** (8); **hura ene** (16); **izan da ene** (9); **izan ene** (7); **izan zen ene** (10); **naiz ene** (19); **ni ene** (11); **nik ene** (8); **nintzen ene** (22); **nion ene** (17); **nituen ene** (12); **nola ene** (10); **nuela ene** (10); **nuen ene** (60); **nuen ene baitan** (10); **nuen ene burua** (11); **oi ene** (32); **orain ene** (13); **orduan ene** (9); **orduko ene** (8); **zegoen ene** (10); **zela ene** (14); **zen ene** (96); **zeren ene** (21); **zeren eta ene** (10); **zidan ene** (11); **zion ene** (9); **ziren ene** (19); **zituen ene** (8); **zuela ene** (9); **zuen ene** (49); **zuten ene** (15)

baina enetzat (8); **da enetzat** (10); **enea ere** (7); **enetzat ere** (7); **eta enea** (10); **eta enekin** (9); **eta enetzat** (7); **zen enetzat** (15)

---

ene *(9.276 agerraldi, 215 liburu eta 1.057 artikulutan; ETCn 39.949 agerraldi)* **1** *izlag* nirea; *interj* ustekabea edo larritasuna adierazten duen hitza. *(ikus beheko konbinatorian* ene *hitzaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

ai ene (165); **ari nintzen ene** (7); **bada ene** (8); **bai ene** (11); **baina ene** (63); **bainan ene** (10); **baita ene** (19); **baitzen ene** (21); **baitzuen ene** (7); **bat ene** (20); **batean ene** (7); **beraz ene** (7); **beti ene** (10); **beza ene** (8); **da ene** (108); **dela ene** (12); **den ene** (12); **diot ene** (16); **dira ene** (25); **ditudan ene** (7); **ditut ene** (15); **du ene** (22); **duk ene** (15); **dut ene** (72); **dut ene burua** (7); **dute ene** (11); **duzu ene** (14); **duzue ene** (7); **edo ene** (11); **ehortzi ezazue ene** (8)

ene aburuz (16); **ene adineko** (8); **ene adiskide** (26); **ene adiskidea** (8); **ene ahizpa** (11); **ene aingerua** (9); **ene aita** (71); **ene aitak** (7); **ene aitaren** (13); **ene aitatxi** (13); **ene aitzinean** (27); **ene alaba** (29); **ene alde** (13); **ene aldetik** (14); **ene ama** (36); **ene amak** (12); **ene amaren** (10); **ene amets** (8); **ene ametsa** (14); **ene anaia** (79); **ene anaia maite** (7); **ene anaiaren** (7); **ene anaiok** (21); **ene andere** (7); **ene andrea** (11); **ene apez** (7); **ene arima** (29); **ene arimak** (12); **ene arimak jauna** (7); **ene arimaren** (13); **ene arrangura** (7); **ene arreba** (31); **ene artzain** (11); **ene artzain etxolak** (11); **ene aspaldiko** (7); **ene atean** (8); **ene aurka** (11); **ene aurpegia** (7); **ene aurrean** (13); **ene azken** (16); **ene bada** (64); **ene baitako** (8); **ene baitan** (148); **ene baitan egin** (10); **ene barne** (7); **ene barrena** (8); **ene begi** (12); **ene begiak** (14); **ene begiek** (14); **ene begien** (20); **ene beha** (10); **ene bi** (13); **ene bihotz** (13); **ene bihotza** (58); **ene bihotza wounded** (8); **ene bihotzak** (15); **ene bihotzaren** (15); **ene bihotzean** (21); **ene bihotzeko** (26); **ene bila** (7); **ene bizi** (20); **ene bizia** (24); **ene bizian** (13); **ene biziaren** (12); **ene biziko** (15); **ene bizitza** (15); **ene bizitzako** (9); **ene bizitzan** (10); **ene block** (7); **ene burua** (62); **ene buruaren** (11); **ene buruari** (24); **ene buruaz** (10); **ene dama** (9)

ene eginbidea (7); **ene emazte** (11); **ene emaztegaia** (7); **ene errege** (54); **ene errege jauna** (30); **ene erregina** (7); **ene esku** (12); **ene etorkizuna** (7); **ene etxean** (7); **ene etxeko** (7); **ene gain** (12); **ene gainean** (7); **ene gazte** (7); **ene gogoa** (17); **ene gogoan** (11); **ene gorputz** (11); **ene gorputza** (16); **ene gorputzaren** (7); **ene gustuko** (22); **ene harridura** (8); **ene haur** (9); **ene haurra** (9); **ene haurrak** (9); **ene haurtzaroko** (9); **ene helburua** (7); **ene herri** (40); **ene herri israelen** (9); **ene herria** (16); **ene herrian** (7); **ene herriaren** (12); **ene herriari** (7); **ene hitza** (9); **ene hitzak** (19); **ene hitzak aditu** (7)

ene iduriko (56); **ene iloba** (9); **ene indar** (8); **ene inguruan** (21); **ene iritzia** (7); **ene iritziz** (10); **ene irudiko** (11); **ene izena** (11); **ene jainko** (167); **ene jainko jauna** (9); **ene jainkoa** (130); **ene jainkoari** (7); **ene jaun** (43); **ene jaun eta** (8); **ene jauna** (148); **ene jaunari** (10); **ene jaungoiko** (16); **ene jesus** (20); **ene kapitaina** (7); **ene kontra** (7); **ene kuttuna** (7); **ene kutuna** (12); **ene lagun** (51); **ene laguna** (32); **ene lagunak** (25); **ene lagunok** (19); **ene lana** (10); **ene laztana** (42); **ene lehen** (33); **ene liburu** (7); **ene maite** (16); **ene maitea** (83); **ene maiteok** (25); **ene nagusia** (9)

ene ondoan (37); **ene ondotik** (11); **ene osaba** (11); **ene partetik** (13); **ene pasha** (7); **ene pena** (10); **ene printze** (9); **ene seme** (149); **ene seme alabok** (8); **ene semea** (13); **ene semeok** (8); **ene senideok** (8); **ene uste** (21); **ene uste apalean** (12); **ene ustez** (181); **ene xedea** (12); **ene zerbitzari** (14)

ere ene (36); **eta ene** (390); **eta ene arimaren** (7); **eta ene ustez** (9); **eta zeren ene** (7); **ez da ene** (14); **ez dut ene** (9); **ez ene** (15); **ez nuen ene** (8); **ez zen ene** (7); **ezazue ene** (10); **ezazue ene bihotza** (8); **ezen ene** (30); **gero ene** (10); **hamlet ene** (8); **hartan ene** (7); **hau da ene** (9); **hau ene** (9); **hemen ene** (9); **hori ene** (12); **horra ene** (8); **hura ene** (16); **izan da ene** (9); **izan ene** (7); **izan zen ene** (10); **naiz ene** (19); **ni ene** (11); **nik ene** (8); **nintzen ene** (22); **nion ene** (17); **nituen ene** (12); **nola ene** (10); **nuela ene** (10); **nuen ene** (60); **nuen ene baitan** (10); **nuen ene burua** (11); **oi ene** (32); **orain ene** (13); **orduan ene** (9); **orduko ene** (8); **zegoen ene** (10); **zela ene** (14); **zen ene** (96); **zeren ene** (21); **zeren eta ene** (10); **zidan ene** (11); **zion ene** (9); **ziren ene** (19); **zituen ene** (8); **zuela ene** (9); **zuen ene** (49); **zuten ene** (15)

baina enetzat (8); **da enetzat** (10); **enea ere** (7); **enetzat ere** (7); **eta enea** (10); **eta enekin** (9); **eta enetzat** (7); **zen enetzat** (15)

---

eneafonia *iz*

«Unibertso magiko eta sentsuala» bilatzen dute, eta, horretarako, **eneafonia** sortu dute, hau da, bederatzi norabideko soinu espezializazioaren sistema. Berria - Kultura

---

eneagrama *iz* bederatzi zenbakiko saila.

Ilgorak antsia guztiak pizten dizkit: **eneagramako** 5a izanik, denetik xurgatzera eta jakitera narama ilargiak gorakoan. Pello Zabala

---

eneastar *izlag/iz* Eneasen familiako kidea.

Eneastarren ama, gizakien eta jainkoen gozotasun, Venus elikatzaile, ortziko zeinu lerrakorren azpian, itsaso ontzitsua eta lehor fruitutsua hanpatzen dituzuna! Xabier Amuriza

---

eneatu, enea, eneatzen da/du *ad* aspertu, gogaitu.

Aulki baten gainean atxeman aldizkariei so iragaiten du zenbait denbora, baina horretan ere laster **eneatzen** da erdiak ez baititu ulertzen euskaraz baitira. Eneko Bidegain

Ez zen igandetan nehor ere **eneatzen** edo aspertzen Luzaiden, ez eta beste herrietan ere. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gérard laster **eneatzen** da Kattalinen tartariketaz. Eneko Bidegain

Ez zen **eneatu** ere, segur baita denbora pasa, orori so egon zela lurreko mamutza ttipi, ardi, ahuntz, pottoka, bele, buzoka... Michel Oronoz

Hamarretan hesten dela aterpea, baina ez naizela **eneatuko** Vilar de Donaseko elizaren ikustera joaiten banaiz. Piarres Aintziart

Baina, alde batetik, nola borroka haiek ederretik bezainbat izaiten baitzuten izugarritik, eta nola izugarriak eta ikaragarriak gero eta gehiago gogaitzen nauen, unatzen eta **eneatzen**, eta, bertzetik [...]. Joan Mari Irigoien

Zatozte beraz abendoaren 5 eta 6 ean Irisarrirat, Airoski gelarat, egun goxo baten pasatzerat, ez zaizte **eneatuko**! Herria

Bisita, erosketa edo besta, ez zen **eneatzekorik**. Herria

Bi oren laster iragan dira, han ziren guziak ez baitira **eneatu**. Herria

---

eneatze *iz*

-Bururatzeko, eta segituko dugu... **eneatze** eta zure denbora-pasak... Frantxua zagoen lekuan ez zen lokartzerik ez **eneatzerik**. Menane Oxandabaratz

---

enebadatar *izond adkor Ene bada!* esaten dutenen taldekoa.

Aienetarra ala **enebadatarra** ote zen jakitea, informazioa zen hori ere. Edorta Jimenez

---

eneganatu, enegana(tu), eneganatzen da/du *ad* enegana etorri, enegana ekarri.

Bi segunduz, kexu batean egon naiz, egin beharrak nituen azken sei kilometroak izpiritu eta gorputzean sartuak eta asimilatuak nituelakotz, **eneganatuak**. Piarres Aintziart

Bi segunduz, kexu batean egon naiz, egin beharrak nituen azken sei kilometroak izpiritu eta gorputzean sartuak eta asimilatuak nituelakotz, **eneganatuak**. Piarres Aintziart

---

enegarren *iz* serie batean leku zehaztugabe baina oso altuan dagoena.

Protagonista Nafarroako Gobernuak euskararen aurka hartutako **enegarren** bidegabekeriaren aurka **enegarren** komunikatua idazten ari zen, harro-harro, komunikatuak ez zuela ezer konponduko ohartu gabe. Berria - Euskal Herria

Zertarako **enegarren** aldiz errepikatu nik ahal izan nuen guztia egina nuela! Joxe Austin Arrieta

Zertarako balio du?, galdetu dio bere buruari **enegarren** aldiz autobusetik jaitsi eta ibaiari begira. Pako Aristi

Goiz hartako **enegarrena** zen aitaren telefono-dei hura. Anjel Lertxundi

Orduan konturatu nintzen, edo hasi nintzen konturatzen, Jose Antonio Mujikaren liburua eskuartean nerabilen **enegarrenean**. Iban Zaldua

Enegarrenez, balizko Erosteko Eskaintza Publiko baten zurrumurrua piztu du horrek."Tira egiten dik neskatoak, ezta?" esan zion **enegarrenez** Mikelek, irribarretsu, alde egin zuen egunean. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
enegarren aldiz (14); **enegarren postala** (8)

---

enegu *iz ipar* traba, eragozpena.

Funtsean urte batetik bestera ahanzten daitezke **eneguak** edo nekeak uste baino aiseago. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beti aterako dira trabak eta **eneguak**, guk ikas dezagun heieri gainditzen. Herria

Nituen **eneguak** kondatu nizkion. Marzel Etxehandi

Enegu baino abantail gehiago izanen zuela Baionak lege horren pean sartzearekin. Herria

Orduan hemengo jendeek ez dezaten sobera **enegurik** ukan, ahalaz igor otoi honaraino hogei bat militar frantses. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Italian Berlusconiren **eneguak** ez doaz ttipituz berak gidatzen duen gobernuaren baitan. Herria

Bixtan da xede horrek **enegu** ainitz ekartzen diola bere judu herritarren aldetik. Herria

Ez gehiago Inchauspe baina Larrechea bera arizan da bere **eneguak** bururaturik. Herria

Osagarriaren partetik bazituen **eneguak**, bultaño huntan. Herria

Zituen alabainan jasan nahi ez eritasunak ez eta ere xahartasunak deramaten **enegu** bortitzak. Herria

Orain arte, akidura salbu, **enegu** fisiko bat ere ez zait gertatu. Piarres Aintziart

Erretreta adinerat hurbiltzean bihotzeko **enegu** zonbeitekin lanetik gelditu behar izan zuen. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Bixtan da **enegu** iturri ager ditazkeela hoik oro Bush jaunarentzat, berriz ere president pasatzeaz oroitzen hasi beharko den huntan.· 80 urteak egin berriak zituen, eta osagarri **eneguak** ukan ditu azken urte hauetan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bihotzeko enegu (3); **enegu asko** (3); **enegu batzu** (4); **enegu batzuen** (4); **enegu eta** (7); **eneguak izan** (4); **eta eneguak** (3)

---

enerbagarri *izond* enerbatzen duena.

Hiruretan hogei bat urte, giro udatiarragatik ere jertse lodi bat janzten zuen, ez noski haizegailuen enbatei buru ematearren, aparatuaren eragin bakarra asots metaliko **enerbagarri** bat baitzen, hamar-hamabortz segundotik behin errepikatzen zena: kla-kla-kla. Aingeru Epaltza

---

enerbatu, enerba, enerbatzen da/du amorratu, bere onetik atera.

Bat-batean, dotoreki jantzia zen gaztea hasi zen **enerbatzen**: [...]. Ramuntxo Etxeberri

Ledean kafe bat, aski **enerbatua** izan ez banintz bezala. Piarres Aintziart

Dong **enerbaturik** tutu "klaxon" kolpe motzak eman zizkion saihetsetik etortzen zitzaion beribilari. Ramuntxo Etxeberri

Gidari batek, beriña beheititu eta, urtzen ari zen asfaltoaren gainean tu egin zuen, **enerbaturik**. Ramuntxo Etxeberri

Nik Baionan dut lan egiten eta beraz eta lapurtar horiek batzutan **enerbatzen** naute, orduan hemen profitatzen dut baxenafartarrak kantuz har araztea. Menane Oxandabaratz

Baina hala ere bazegoen egitate hartan krudeltasun harro bat, tronpatuaren mindurak desenkusatzen ez zuen ardoaz barnagoko zabarkeria anker bat, **enerbatu** egiten ninduen zehaztasun mingarri bat. Koldo Izagirre

Lo eskasak **enerbaturik**, Nina erdi oihuka ari zitzaion bere amatxiri. Ramuntxo Etxeberri

---

energetiko **1** *iz* energiarena, energiari dagokiona. ik **energia 3**.

Iraunkortasuna: prozesu edo sistema bat bere hartan aritzean datza, funtzionatzeko behar dituen oinarri **energetiko** zein materialak agortu gabe. Berria - Gaiak

Horrela, zaborrari balio **energetikoa** ematen diogu. Berria - Euskal Herria

Gizarte modernoak arazo latzari egin beharko dio aurre: petrolioa ordezka dezaketen iturri **energetikoen** lorpen eta garapenari. Berria - Gaiak

Herrialde inportatzaileen nazio-errentei eragindako diru-hustea handiagoa edo txikiagoa izan zen mendekotasun **energetikoaren** mailaren arabera. Koro Navarro

Petrolioaren krisiak inflazioan izandako eragina, berez, produktu **energetikoen** pisua prezioen indizean kontuan harturik, ez zuen %2-%2,5etik gorakoa izan behar. Koro Navarro

Europaren segurtasun **energetikoa** Ukrainaren esku dago. Berria - Mundua

Hornidura **energetikoa** ziurtatzeko pausoak azkartu dituzte azkenaldian munduko herrialde boteretsuenek. Berria - Ekonomia

Boca de Pozo lurraldeko baliabide **energetikoak** berreskuratzeko nahia azaldu zuten boliviarrek (botoen %90). Berria - Mundua

Horretaz gainera, azpiegitura **energetiko** guztiak hornitzea dutela helburu esan zuen. Berria - Harian

Ukrainarren behar ekonomiko eta **energetikoei** erantzuteko bi zentral haiek eraikitzea ezinbestekoa zela argudiatu zuten orduan agintariek. Berria - Gaiak

Betiere hiriaren eta eraikuntzen alderdi ekologiko eta **energetikoak** kontuan hartuz. Berria - Kultura

Nekazaritzako hondakinen erabilera **energetikoa** gauzatzeko ekimenak sustatu. Berria - Euskal Herria

Europako Batasuneko Energia ministroek eraginkortasun **energetikoa** bultzatzeko zuzentaraua onartu zuten atzo. Berria - Ekonomia

Frantziako lehen ministroaren helburua «munduko talde **energetiko** handienetakoa» sortzea da. Berria - Ekonomia

2 energia duena.

Pare bat barra **energetiko** jan ondoren, ipar alderantz jo nuen bizkar hartatik. Josetxo Azkona

Protagonistek patata-tortilla jaten ahal dute, edo arraina gordinik, edo pilula **energetikoen** nahasketa. Jon Alonso

Saguak dira errazenak, katuek egiten duten moduan, baita zizareak ere, baina ez dira horren **energetikoak**. Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
balio energetikoa (3); **eraginkortasun energetikoa** (3)

---

energi ik **energia** 3.

---

energia *(ETCn **51.625** agerraldi)* **1** *iz* sistema batek lan bat egiteko edo ingurunean aldaketak eragiteko duen gaitasuna.

Energia ez da sortzen, ez desegiten. Fernando Morillo

XVI. mendean [...], ehun urte lehenago edo ehun urte geroago bezala, **energia** berberen mende zegoen industria-ekoizpena: giza motorra, animalia-motorra, haizea, ura eta egurra. Koro Navarro

Edozein motatako makinetan **energia** kopuru bat behar da lana sortzeko. Fernando Morillo

Lurrunaren aroan, gorputzaren eredu praktiko bat ondu zuten fisiologoek, erregaia barneratu eta **energia** hainbat modutan erabiltzen zuen makina termikotzat harturik gorputza. Irene Aldasoro

Fosfokreatina erreserbak berritzeko behar den **energia** glukogenoa oxidatzetik lortzen da. Irene Aldasoro

Milioi bat pertsonak, denak batera hizketan jarrita, sortuko luketen soinuaren **energia** 15 edo 20 watt baino ez litzateke. Irene Aldasoro

Energia aurrezteko programak. Iñaki Mendiguren

Kuantu bat argiren **energia** xurgatzen denean, erretineno molekula, eraldatu, eta bere sargunetik irteten da. Irene Aldasoro

Beste prozesu bat izaten du glukogenoak: azido laktiko bihurtzen da, eta **energia** apur bat askatzen du. Irene Aldasoro

Erreakzio kimikoetatik edo auzoko molekuletatik datorren **energia** xurgatzeak antzeko efektua sor dezake. Irene Aldasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Energia geotermikoa, eolikoa edo biomasan oinarritutakoa, berriz, ez dira ingurumenarekiko kaltegarriak. Berria - Gaiak

Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundeak astelehenera atzeratu du Iranen jarreraren inguruko balorazioa. Berria - Mundua

Aldi berean, erreakzio bakoitzak **energia** kimikoa askatzen du, beste erreakzio batzuetarako erabilgarri. Juan Garzia

Horrela askatzen den **energia** kimikoaren parte bat lan bihurtzen da, eta, beste parte bat, berriz, bero. Irene Aldasoro

Nerbio-zuntz batetik igaro daitekeen **energia** elektrikoa ez dela aski muskulu-zuntz bat estimulatzeko. Irene Aldasoro

Energia hidroelektrikoa ere euriaren mende dago. Irene Aldasoro

Urte haietan, zorionez, ez zegoen ezer segururik: **energia** nuklearra bideragarria ote zen? Fernando Morillo

Itsasoko **energia** eolikoaren abantailak «begibistakoak» direla dio Greenpeacek. Berria - Gaiak

Ez du berez gehiegi balio iaz genituen behaketek **energia** iluna unibertsoaren %60-80 zela erakusten zigutela esatea. Berria - Gaiak

Zentral termikoak ez dira, dioten bezala, **energia** garbia. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, orobat**energi**) ik **energetiko**.

Nafarroan beste tokietan baino lehenago egin zen Ingurumenaren Aholku Kontseilua, eta bere garaian, **energia** politika oso aurrerakoiak jarri zituzten martxan herrialde horretan. Edurne Elizondo

Alemaniaren eta Frantziaren **energia** inperialismoari aurre egin behar diote besteek. Berria - Mundua

Eusko Jaurlaritzak 4.900 milioi euroko **energia** plana onartu du. Berria - Euskal Herria

1970eko hamarraldiaren hasieran gertatu ziren diru- eta **energia**-krisiek nazioarteko ordena horren amaiera iragarri zuten. Koro Navarro

Entzumenaren **energia**-beharrak nahiko txikiak dira. Irene Aldasoro

15-20 urtean bioerregaiek munduaren **energia** premien laurdena beteko dute. Berria - Gaiak

Kontuan izan behar du elikagaiak hartzea eta gorputzaren **energia**-eskea ez direla aldi berean gertatzen; jakina, energiaekoizpen handiena jatorduen artean izaten da beti. Irene Aldasoro

Energia baliabide eta lehengai gutxiago erabiliz. Iñaki Heras

Lurzoru hori «**energia**-lurralde bezala sailkatzeko erabaki frankistaz» ezin direla aprobetxatu azaldu zuen diputatu ohiak. Berria - Ekonomia

Gorputzaren **energia**-sistemari erreparatzen dion ingeniariak bi ezaugarri txundigarri hautematen ditu. agintarien jarreraren atzean ESB Bizkaia **Energia** enpresa multinazionalaren premiak daudela uste dute Zornotza Bizirik-ekoek. Irene Aldasoro

Gas naturaleko eta ziklo konbinatuko azpiegiturak eraikitzeko 2.595 milioi euroren inbertsioak egingo dituzte 2010a bitartean; kanpoko **energia** menpekotasuna murriztea dute xede. Berria - Ekonomia

Energia kontsumoa areagotu egin da Mendebaldean, industriaren alorrak pisua galdu arren. Berria - Gaiak

Lotan, 80 watt ingurukoa da gorputzaren **energia**-gastua. Irene Aldasoro

Esprinterrak, epe laburreko **energia**-erreserba erabiliz, orduko 23 miliako abiaduran egin ditzake ehun yarda. Irene Aldasoro

Energia kantitate bera denbora luzeagoan bidaltzen bada edo eremu zabalago batean barreiatzen, ikuste-sentipenik ez da gertatuko. Irene Aldasoro

Eguzkia **energia**-labe ikaragarri bat dugu. Pello Zabala

Ur-bilatzaileen sardango makila, **energia** uhinen bila zerabiltena basa-lizar adarrez egina zen. Pello Zabala

Halako **energia**-fluktuazioak oso bakanak bide dira, baina ez da baztertzekoa halakoren batzuk gertatu izana espazioaren beste eskualde batzuetan, beste denbora batzuetan, eta horrenbestez beste unibertso batzuk sortu izana. Juan Garzia

Ameriketako Estatu Batuetako **Energia** Departamentuak. Berria - Gaiak

Batzarrean Txaber Lezamiz **Energia** zuzendaria eta Ruben Mendiola Kontsumo zuzendaria izan ziren. Berria - Euskal Herria

Estatu Batuen aurka mintzatu zen Rafael Ramirez Venezuelako **Energia** ministroa. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haien ordezko **energia** berriztagarriak, esate baterako eguzki-**energia**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Oso argitasun gutxi duten eta, horregatik, atzematen ez diren gauza batzuk [...] eta oso argitasun biziko beste batzuk, hain argi **energia** bizia emititzen dutenak non erredurak eragin baititzakete. Josu Zabaleta

5 kemena, indarra.

Haurrari eskainitako hainbeste denbora eta **energia**; hainbeste ilusio eta maitasun! Luis Elberdin

Herra ukaiteko **energia** behar da, eta nik ez dut horretan erabiliko. Berria - Euskal Herria

Krisi bakoitzean metodo bera segitu izan dut: hartu bidea segitu, sufrimendua bera **energia** bilakatzen zela, indar. Piarres Aintziart

Iruditu zitzaidan **energia** gehiegi xahutu zuela atso triste batekin. Anjel Lertxundi

Elizak bere baitan hartzen ditu estatuak jada askatu edo erabili ezin dituen energiak, eta bide berriak sortzen ditu **energia** horiek ibil daitezen. Iñaki Mendiguren

Klase ertainaren **energia** indargabetua edo desbideratua gertatzen bazen. Iñaki Mendiguren

Energia hori *limes* barruan zibilizazioak sortzen du eta, harreman-truke beteago eta emankorragorako oztopo den hesian (uretan) zehar igarotzen da. Iñaki Mendiguren

Gerta ote daiteke desadostasuna eta desordena benetan ez izatea energi suntsitze hutsa, **energia** sortzen zuen kausa baizik? Iñaki Mendiguren

6 (izenondo eta izenlagunekin)

Ama Lurreko **Energia** Telurikoak, barka ezazue proteina multzo desitxuratu hau! Jon Alonso

Energia soziala aktibatzeko baldintza gehiago du ezker abertzaleak, baina 25 urteotan euskarri izan duen imajinarioak ez du balio. Txema Ramirez de la Piscina

Limes baten hurbiltasunak ondoeza sortzen duela mugaz bestaldean bere irispidean dauden barbaroengan, haien aurretiazko ekonomia eta erakundeak **energia** psikikozko zaparradak desegiten baititu. Iñaki Mendiguren

Prana zen gauza guztietan zetzan **energia** dinamikoa. Fernando Morillo

Baikor eta **energia** zoro baten menpe nintzen, hala banintzen. Harkaitz Cano

Gizartearen **energia** agorgarriak kontserbatuz. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Kristandadeak bere **energia** erasokorrak ipar-ekialdeko mugara bideratu zituen orain. Iñaki Mendiguren

Energia sortzaile hori, erlijiozko babespean, ubide sekularretara isurtzen ikusten dugu gizarte-bizitzako ekonomia, politika eta kulturaren mailan. Iñaki Mendiguren

Energia mistikoen bilgunea, nolabait erratekо. Alberto Ladron Arana

Urdin koloreko **energia** eskerga metalean zehar jaitsi zen, besora hedatu eta gorputz osoa bildu zuen arte. Joanes Urkixo

Fionnek laster jakin zuen zer zen: munstroaren deabruzko **energia**. Joanes Urkixo

7 (hitz elkartuetan lehen osagi gisa)

-Nobela pazientzia ariketa bat da, **energia** pilaketa. Joxean Agirre

Bere **energia**-gordailua aldez edo moldez ahitu ezean, eguna alferrik galdu zuela iruditzen zitzaion. Juan Garzia

Sortzaileak egozentrikoak dira baina kreatzen dutena **energia** alor bat da, besteengana zuzenki doana. Ana Urkiza

8 ***energia iturri*** *(orobat* ***energiaiturri*** *g.er.)*

Aldi berean degradatu zituen petrolioaren lehiakortasuna beste **energia-iturrien** aldean, eta petrolioaren munduko salmentan zuen partea. Konplikatua da arazoa, izaki biziek ez baitute **energia-iturri** oinarrizko bat besterik. Koro Navarro

Ingeniariek bueltak ematen hasi ziren **energia iturri** berriak aurkitzeko. Pello Salaburu

Gantza garraiatzen du [odolak] gorputzaren erreserbetatik gibelera, janaria eskas dabilenean, **energia**-iturri osagarri gisa. Irene Aldasoro

Arazo hauek interes akademikoa pizten dute oraindik, ez baitugu **energia-iturri** egokirik bihotz artifizial bat erabiltzeko. Irene Aldasoro

Diseinu-ezaugarri burutsu ugari dituen **energia-iturri** autopropultsatu gisa ikusten du ingeniariak gorputza. Irene Aldasoro

9 ***energia mendekotasun*** *(corpusean* ***energiamendekotasun*** *soilik)*

Estatu Batuek, beren aldetik, beren **energiamendekotasuna** murrizteko konpromisoa hartu zuten, petrolioaren barne-prezioa igoz horretarako, ordu arte munduko preziotik oso behera baitzegoen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

energi iturri (4)

adina energia (4); **aebetako energia** (12); **aebetako energia departamenduak** (5); **atzo iaea energia** (7); **baina energia** (8); **baino energia** (6); **behar den energia** (10); **behar duen energia** (5); **bere energia** (14); **bizkaia energia** (7); **da energia** (25); **den energia** (31); **denbora eta energia** (4); **du energia** (26); **duela energia** (5); **duen energia** (11); **dute energia** (8); **duten energia** (11); **ebk energia** (4); **edo energia** (6); **eguzkiaren energia** (4)

energia agentziak (11); **energia agentziaren** (5); **energia alorrean** (6); **energia alorreko** (4); **energia alternatiboak** (5); **energia arloko** (4); **energia asko** (8); **energia atomikoa** (7); **energia atomikoaren** (59); **energia atomikoaren nazioarteko** (49); **energia atomikorako** (46); **energia atomikorako nazioarteko** (40); **energia aurrezteko** (11); **energia baino** (4); **energia behar** (4); **energia beharrak** (4); **energia berriztagarriak** (26); **energia berriztagarriak eta** (4); **energia berriztagarrien** (30); **energia berriztagarrietan** (8); **energia departamenduak** (6); **energia edo** (4); **energia elektriko** (4); **energia elektrikoa** (6); **energia enpresa** (9); **energia enpresak** (7); **energia eolikoa** (11); **energia eolikoak** (4); **energia eolikoaren** (13); **energia ere** (4); **energia estrategia** (4); **energia eta** (44); **energia garbien** (4); **energia gehiago** (20); **energia gutxiago** (6); **energia guztia** (8); **energia guztiak** (5); **energia handia** (4); **energia hori** (19); **energia iluna** (4); **energia iturri** (35); **energia iturri berriztagarriak** (4); **energia iturriak** (14); **energia kimikoaren** (5); **energia konpainiak** (4); **energia kontsumoa** (14); **energia kontsumoaren** (5); **energia lortzeko** (11); **energia ministro** (5); **energia ministroak** (13); **energia ministroek** (5); **energia mota** (4); **energia nuklear** (5); **energia nuklearra** (62); **energia nuklearra garatzeko** (4); **energia nuklearrak** (12); **energia nuklearraren** (33); **energia nuklearraz** (5); **energia nuklearrerako** (5); **energia plana** (5); **energia politika** (9); **energia politikaren** (6); **energia produktuen** (4); **energia psikikoaren** (7); **energia sektoreak** (4); **energia sortu** (6); **energia sortzeko** (14); **energia sortzen** (9)

erredakzioa iaea energia (6); **espainiako energia** (5); **eta energia** (135); **eta energia berriztagarrien** (4); **eta energia iturri** (5); **eta energia sortzeko** (4); **eta iaea energia** (5); **europako energia** (6); **frantziako energia** (4); **g energia** (5); **garraio eta energia** (5); **gorputzaren energia** (4); **hainbeste energia** (4); **haren energia** (4); **hc energia** (8); **hc energia enpresak** (4); **horrek energia** (4); **iaea energia** (69); **iaea energia atomikoaren** (34); **iaea energia atomikorako** (32); **iea nazioarteko energia** (11); **industria eta energia** (4); **iranek energia** (5); **irango energia** (9); **irani energia** (4); **itsasoko energia** (7); **nafarroako energia** (6); **nahi du energia** (4); **nazioarteko energia** (25); **nazioarteko energia agentziak** (11); **nazioarteko energia agentziaren** (5); **ramirez venezuelako energia** (4); **venezuelako energia** (8); **zen energia** (4); **zenbat energia** (4); **ziren energia** (4); **zuen energia** (6)

den energiaren (11); **energiaren eta** (5); **energiaren euskal** (16); **energiaren euskal erakundeak** (10); **energiaren kontzeptu** (4); **energiaren nazioarteko** (8); **energiaren nazioarteko agentziak** (4); **energiaren prezioa** (4); **energiaz gainezka** (5); **eta energiaren** (13); **eta energiaz** (8); **kontsumitzen den energiaren** (8)

---

energiaiturri ik **energia 8**.

---

energiamendekotasun ik **energia 9**.

---

energiko *izond* indarra adierazten duena, kemenez aritzen dena.

Meatzetako telefonora hots egin zidaten: hariaren beste aldean, zakar eta **energikoa** iruditu zitzaidan eta Martini doktore delako batena omen zen ahots milandar batek hurrengo iganderako hitzordu bat izendatu zidan Turingo Hotel Suisse-n, bestelako inolako xehetasunik ematera makurtu gabe. Juan Garzia

Entzun genuen bertsioa dirdiraz betea izan zen, eta emandako bi lanetan, Brahmsen irakurketa **energiko** bat nagusitu zen. Berria - Kultura

Ez da nolanahiko kontzertua izango, Euskal Herriko rock talde sutsu, zorrotz eta **energikoenekin** batera, emanaldirako propio elkartutako taldeak ere ariko baitira. Berria - Kultura

Gure aita akzio gizona zen, oso **energikoa** eta indartsua, bai gorputzez eta baita buruz ere. Ana Urkiza

---

energitsu *izond* kemenez, indarrez betea.

Euskal arraza **energitsua** da, eta Baroja-k puntu honetan Unamuno-k bezala pentsatzen du Joxe Azurmendi

---

energumeno *iz* pertsona suminkorra eta erasotzailea.

Ez nuen ba irakurri BERRIAko iritzi sailean kolaboratzaile moduan daukaten **energumeno** bat selekzio baten alde egotea faxismoaren ataria dela. Berria - Kirola

---

enetxo *ene*-ren txikigarria, txerazko bokatiboa.

Hator hona, **enetxo**. Antton Olano

Apa, apa, **enetxoa**! Jose Morales

Enetxoa, hura bai, hura badun norbait. Anton Garikano

Deitu eta ekar itzan, **enetxo**, nire lagunak: apaiza, Sanson Karrasko batxilerra eta maisu Nikolas bizargina. Patxi Ezkiaga

Beraz, **enetxook**, har ezazue ohore guztiz Jainkoaren egoitza den toki hau. Askoren artean

Itzul zaitezte, **enetxook**, zaharregia bainaiz ni berriro ezkontzeko. Elizen arteko biblia

Munduan diren identitate edo fede nazional guztien kontra jarduterik ez baitago, **enetxoak**, eta bat apartatu behar kontra egiteko, eta sinesteko, bat egiteko edo aintzakotzat hartzeko arriskurik handiena (izan) duen bakarra aukeratu behar ba! Iñaki Segurola

---

enfasi **1** *iz* adierazpenaren edo intonazioaren indarra, esaten dena nabarmentzeko egiten dena.

Eta gero eransten zuen, hitzari **enfasia** emanez: “Zorionez!”. Anjel Lertxundi

-Bai! -erantzun nion nik **enfasi** berezi batekin, saltzaileari aurrea hartuz. Joan Mari Irigoien

-Tira, utz dezagun gai hori beste baterako; ez du zertan gaur aukeratu -esaten du amak, eta gaur esaterakoan **enfasi** berezia egiten du nire egoeraren berezitasuna azpimarratzeko. Anjel Lertxundi

Urrun dagoelako edo, oso ozenki eta poliki, zenbait hitz eta esaldiri **enfasi** berezia emanez arituko da irakurtzen: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

-Kontuan eduki zure aita pertsona ezaguna izan zela -esaten zion andre Leonardak **enfasia** jarriz. Josu Zabaleta

Hurrengo lehen letrak apenas merezi duen maiuskularik Mikelek jarri zion **enfasiagatik**. Unai Iturriaga

Stephenen bezperako KOIPU hura, berriz, hori baino konplexuagoa zen, kasu hartan nabarmen ahogozatu baitzuen soinua, nik emandako **enfasi** bitxia. Xabier Olarra

Erabat aztoratua zegoen, Lilyk antzeman zezakeenez, eta **enfasi** handiarekin hitz egiten zuen. Anton Garikano

-Askotan esan diot Juliari -esan zuen izeba Katek, **enfasiz** - koru horretan gutxietsirik dagoela. Irene Aldasoro

Gero, erritmo aldaketa bat eginez eta hitz bakoitza **enfasiz** geldiro ebakiz-: Hasi jotzen! Beti zure zain izan nauzu -gehitu zuen, modu atseginean baina **enfasirik** gabe, dotoretasunez eta apal-. Xabier Olarra

Badirudi orobat, **enfasi** negatiboa, litotesa bereziki, erabiltzeko joera askoz nabariagoa dela euskaraz aldameneko hizkuntzetan baino. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aztertzen dituzten obretan metaforak, metonimiak, sinekdokeak, edota litoteak edo **enfasi**-kasuak bereizten ahalegintzen dira. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Makilak **enfasi** gutxiagorekin jotzen zuen lurra. Irene Aldasoro

Halako **enfasia** jartzen zuten subjektibotasunean, hartaraino ziren indartsu indibidualtasunaren aldeko ideiak, non ahaztu bide zitzaien Aristotelesen garaietatik jakina zena, alegia gizon eta andrezkoak gizarte animaliak garela, animalia politikoak. Bernardo Atxaga

Beatrizek ez zuen itsasontzia nahi izan; despedida, haren ustetan, **enfasi** bat zen, zorigaitzaren ospakuntza zentzugabe bat, eta berak gorroto zituen **enfasiak**. Juan Garzia

Egungo literaturaren hankasartze kuttuna **enfasia** da. Juan Garzia

Eskuarki, Templeren formulazio eta azalpenak bat datoz zientziak emandakoekin, salbu eta txiki-txikitako besarkadaren eta estu tinkatzearen premian egiten duen **enfasian**, bere kontu berezia baita hori. Xabier Olarra

Pinturaren muga errealetan **enfasi** izugarria jarri zuen Rothkok, eta horrek koadroen barruan beste koadro batzuk ageri diren sentsazioa sortzen du. Berria - Kultura

Templeren ustez, **enfasi** handiegia egin da autismoaren alde txarretan, eta, konparazioz, arreta gutxi jarri zaie, edo begirune gutxi izan zaie, alde onei. Xabier Olarra

Hortaz, arrisku morala saihestearren, babes sozialaren **enfasia** babes pasiboan baino babes aktiboan oinarritu beharko litzateke. Iñaki Heras

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **enfasi berezia** (5)

---

enfasibako *izond* enfasirik gabekoa.

Enfasibako eskerrik asko. Unai Iturriaga

---

enfatiko *izond* enfasiz egina.

Vietnameraz erabiltzen dira, besteak beste, beste kontsonante batzuen aldaera **enfatiko** gisa. Lourdes Oñederra

Buruaz baiezko **enfatikoak** egiten zituen erakustean, eta batzuez "ona", "polita" eta halakoak esaten zituen. Xabier Olarra

Egia da, baina esan dudana ez da hitzez hitz hartu beharrekoa, adierazpen **enfatikoa** zen, beti ere solaskidearen adimenaren laguntza behar duen horietakoa. Jon Alonso

Horixe besterik ez zen gertatzen, don Blasek eta biek hitz egiteko modu **enfatiko** eta hanpatu hori erabiltzeko ohitura hartu zutela, eta trebatuak zirela horretan. Josu Zabaleta

Zaunka politikoen doinuak, iraultzaile kobardeak taldera ordu egiten duen protesta **enfatikoak**, instruzio militar xuxenak... Patziku Perurena

---

enfatizatu, enfatiza, enfatizatzen du *ad* enfasia egin, enfasia eman.

Esan nahi dut nik ezin dudala **enfatizatu**, ezin dudala soberan dagoena idatzi. Berria - Kultura

"El tema es España", **enfatizatzen** du López-Morillas-ek. Joxe Azurmendi

Baina baten **enfatizatzeak** ez du inoiz bestearen ukatzea adierazten. Joxe Azurmendi

---

enfermeria *iz* erizaindegia.

Nola dago atzo **enfermerian** utzitako espedizio-kidea? Unai Elorriaga

Enfermeriara deitu digute, eguneroko kontrola igarotzera. Jokin Urain

Kartzelako **enfermerian** nengoen batean, komunaren arauak hautsi eta Triku eta Etxeberria etorri zitzaizkidan bisitatzera, eta baimena eskatu zidaten Papiri mezu bat bidaltzeko nire defentsan, traizioarena kalumnia bat zela esanez. Bernardo Atxaga

Gaztetan klinika batean egon nintzen misioetan, eta gero, berriz, urte luzeetan egon naiz hemen, komentuko **enfermeriako** kargu hartuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Enfermeriako patioan nengoela hots egin zidaten Demik eta Turronek euren ziegako leihotik. Jokin Urain

---

enfin *(orobat **enpin** g.er.)* *adlag* hizketa gai bat bukatzeko-edo erabitzen den hitza.

Enfin... Harkaitz Cano

Enfin, hemeretzi urte neuzkan. Joxean Sagaztizabal

Enfin, zeuk erabaki. Jon Alonso

Enfin, gauza gutxi... Ana Urkiza

Enfin, ulertu ezinezko gauzak. Joxemari Iturralde

Hori gertakari fisiko bat da, **enfin**, fisiko bat... Menane Oxandabaratz

Hagiz desluzitua gelditu omen zen, publikorik gabe, borrokalarik gabe, **enfin** oldar fantasma bat, penagarria. Patziku Perurena

Edo nik dakita beste zergatik, **enfin**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Edertasuna, agian ikasi egiten da, eta horretarako denbora izan behar da, **enfin**. Lander Garro

Hainbeste **enpin**, hainbeste latin eta hainbeste ostia! Jon Arretxe

---

enfisema *iz* gorputzeko organo eta ehunetan, eskuarki birika ehunean, gertatzen den aire metatze anormala.

Eragile asko izan zituen arnasa-krisi haren jarraipenak: loditurik eta fibrosiak jota zeuden Virgilen birikak; bronkitis eta **enfisema** aurreratuak zituen. Xabier Olarra

Bide honetatik jarraituta, diabetiko eta biriketako **enfisemarekin** amaituko dugu. Pako Aristi

Biriketako minbiziak, asmak, pneumoniak, eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoek bronkitis kronikoa eta **enfisema**, tartean beste inon baino heriotza gehiago eragiten dute herrialde horietan. Berria - Gaiak

Enfisema du -esan zuen bizarginak leihotik-. Koro Navarro

---

enfokatu *(ETCn **276** agerraldi; cf **fokatu** ETCn **810** agerraldi)*, enfoka, enfokatzen **1** du *ad* fokatu.

Imajina **enfokatzen**, argia neurtzen eta itsatsitako hatzak soltatzen emandako denbora dela eta, haizeak eta hotzak ikaragarrizko mina emango dizute azazkaletan. Joseba Sarrionandia

Begiak itxi-irekiz, bista **enfokatu** nahian, bat-batean bakarrik ez zeudela ohartu izan balitz bezala. Fernando Rey

Kirurgialaria hantxe bere aurrean, artean bendak eskuan, eta, Virgilek, hura ikusten ez bazuen ere, ematen zuen finko begiratzen ziola, zurturik, **enfokatu** gabe. Xabier Olarra

Itsasadarraz bestaldeko balkoietara **enfokatu** ditu begiak, eta lehengo emakume beltzarana ikusi du. Paddy Rekalde

Niregana **enfokatu** zuen makina. Bernardo Atxaga

Alfonbra gorri baten gainean, kamerek Txinako presidentea **enfokatu** zuten. Unai Elorriaga

Akaso izen bat edo beste esango du aurkezleak, irudiak kendu eta berriz ere **enfokatzen** dutenean. Jokin Muñoz

Kamerak andrea **enfokatzean** Montoliuren musika entzungo dugu. Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud/hed

Edo, beharbada, gaizki **enfokatzen** dugu kontu hau: guraso bat silueta bat baino ez da, eta seme-alabak dira gurasoek utzitako siluetan eta zuloetan sartzen direnak, ohartuta edo ohartu gabe. Harkaitz Cano

Zenbait gaietan, gai-jartzaileak gaia nondik, nola eta nora **enfokatzen** duen feminitateak leku handiago edo txikiago har dezake. Berria - Kultura

Zer eta esparru juridiko-politikoa erabakitzeko! Hau gaizki **enfokatuta** dago. Berria - Euskal Herria

---

enfoke *iz* fokatzea.

Lehenengo **enfokea** Vitruvio historikoaren estudioa da [...], eta bigarrena Vitruvioren interpretazio, manipulazio eta XV. eta XIX. mende bitarteko kultura arkitektoniko modernoaren garapenaren gain izan duen eraginaren estudioa. Santiago Iruretagoiena

Mugimenduz eta **enfoke** galtze ugariz beteak daude Rodriguezen argazkiak, eta horrek nolabaiteko abstrakzioa ematen die. Berria - Kultura

Itzul gaitezen hasierara, nahasturik jada, **enfoke**-planoa hurbiltzeko edo urruntzeko zorian, trebeziarik gabe, interesgunearen ertzak belatzeko arriskuarekin, interesgunea bera, nolabait esateko, identifikagaitz bihurtzeraino. Jon Alonso

---

enfrentamendu **1** *iz* aurrez aurrekoa, liskarra, konfrontazioa.

Gatazkak gainditzeko, herri ekimenak behar dira, batetik, **enfrentamendua** humanizatzeko, eta bestetik, elkar ulertzeko, pertsona eta herri gisa zer nahi dugun alde guztiok elkarrekin erabakitzeko. Berria - Euskal Herria

Enfrentamendu eta borroketako biktimez hitz egiten denean, emakumeak izaten dira askotan protagonista. Berria - Gaiak

Ezadostasunok Fidel Castroren esku hartze zuzenari esker konpondu ziren, eta iraultzaileen arteko balizko **enfrentamenduak** horrelaxe saihestu ahal izan ziren. Edorta Jimenez

Azken urtean, ia ez da **enfrentamendurik** egon Senegalgo Armadaren eta matxinoen artean. Berria - Mundua

2 (armen bidezkoa)

Iazko uztailaren 1etik urtarrilaren 1era 3.274 zibil hil eta 12.657 zauritu dira **enfrentamenduetan**. Berria - Harian

Enfrentamenduen amaiera: Erakunde armatu palestinarrek israeldarrei erasotzeari utziko ziotela iragarri zuen atzo Mahmud Abbas PANeko buruak. Bi kazetari hil eta hainbat zauritu eta bahitu eragin zituzten **enfrentamenduek**. Berria - Harian

Enfrentamendu horren ondorioz, erasotzailea erietxera eraman zuten zaurituta. Berria - Kultura

Gerrillarien eta militarren arteko **enfrentamenduetatik** ihesi. Berria - Gaiak

Sucren izaniko istiluetan, manifestari bat hil da Poliziarekin izaniko **enfrentamenduetan**. Iñigo Aranbarri

Hamarkadako lehen lau urteetan 30etik gora dira Poliziarekin **enfrentamenduan**, kontroletan tirokatuta edo ekintza istripuetan hildakoak, ETAko militanteak gehienak. Jokin Urain

Ikusi beharko da ea horrek giroa txartuko duen eta hautetsiak Estatuarenganako **enfrentamendu** dinamika batean sartuko diren ala burua makurtuko duten. Berria - Harian

Azken urtean, ia ez da **enfrentamendurik** egon Senegalgo Armadaren eta matxinoen artean. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arteko enfrentamendu** (4); **arteko enfrentamenduak** (10); **enfrentamendu eta** (3)

---

engaiamendu *(orobat **engeiamendu** g.er.)* **1** *iz* engaiatzea, konpromisoa.

Hasian hasi, **engaiamendua** bururaino eramaiten zuen. Eneko Bidegain

*Biltagarbi*ren barnean diren hamahiru herri sindikatetatik bostek **engaiamendua** hartu dute, aurten berean ondarkin kopurua ttipi arazten hasteko bakoitza bere eremuan. Herria

Lau urteko agiria emanen diete, master bat egiteko **engaiamendua** hartzen badute. Berria - Harian

Euskararen erabilera garatzeko eta sustatzeko **engaiamendua** hartzea. Herria

Gaia Bordeleko errektorearekin eta Hezkuntza Ministerioarekin aztertzeko **engaiamendua** bere gain hartu zuen Brissonek. Berria - Euskal Herria

Bidart jaun erretorak orroitarazi ditu sakramendu horrek zer eginbide eta **engaiamendu** ekartzen dituen aitameri eta ere aitatxi amatxieri. Herria

Hautetsien **engaiamendua** eskatu zuten. Berria - Euskal Herria

Nestor Basterretxearen artelanak eta **engaiamendua** laudatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Ziurtagiri horrekin, publikoki aitortzen da euskararen erabilpena garatzeko **engaiamendua**, bai idatzian bai ahozkoan. Herria

Kopuruari buruzko **engaiamendua** gaur egungo prezioetara egokitzea da Bessonarten kezka. Berria - Euskal Herria

Euskal kulturarekiko atxikimendu eta **engaiamendua**. Filipe Bidart

Hegoaldean zein Iparraldean bakarra da askapen prozesua eta bakarra izan beharko du herri honetako gizon eta emakumeen indar eta **engaiamendua**. Filipe Bidart

Arduradunen erantzun eta **engaiamendurik** ez. Berria - Euskal Herria

14. korrikaren mezu nagusia norberaren **engaiamendua** (euskararekilako) indartzea eta eskatzea da. Herria

MPP (Mouvement Paysan de Papaye)-ko militante hunek bere biziaz kasik pagatu du hango laborarien aldeko **engaiamendua**. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Botere Publikoek **engaiamendu** handiagoa hartu bitartean, herritarrena baitaezkoa da euskararen geroa bermatzeko da eta Hernanek eskerrak eman dizkie euskaltzaleei. Berria - Euskal Herria

Benetako arrazoiek bideratu dituzte borroka bidean, **engaiamendu** pertsonalak funtsezko pisu bat izan arte beren bizitzan. Filipe Bidart

Bere **engaiamendu** politikoa baliatuz. Berria - Kultura

Hautetsiek **engaiamendu** ekonomikoak galdegin dizkiote Barne ministroari. Berria - Euskal Herria

Herriko Etxeak **engaiamendu** berezi batzu hartu ditu: bere deliberoak elebitan ezartzea, bilkura publikoak ere bi mintzairetan apailatzea, euskarazko seinaletika bat ere muntatzea, bai-eta telefonoko urtekarian etxeen izenak berreskuratzeko urratsen egitea. Herria

Orain euskararen aldeko **engaiamendu** konkretuak hartzeko tenorea da. Herria

Haren bultzatzeko ekintzak zerrendatuko dituzte eta **engaiamendu** xeheak hartuko ondotik. Herria

52 Herriko Etxe dira UEMA-ren partaide, **engaiamendu** zorrotzekin, herriko akta ofizialak euskara hutsez egiten dituztela. Herria

Azken muturreraino eramandako **engaiamendua** da Handkerena, **engaiamendu** bikoitza: zientifiko zorrotzarena eta poeta intimoarena. Berria - Kultura

Azpigarapenaren eta garapenaren artean dago euskal kultura, krisi gorrian, eta hizkuntzarenganako betiko **engaiamendua** berritu beharra dago. Markos Zapiain

Euskara zinezko **engaiamendua** duzu, antzerki arloan bezala, ikastolan zein eguneroko bizian. Berria - Kultura

Berri ontzat hartuak dira zinez holako **engaiamenduak** eta etsenplutzat erakutsiak ere holako xedeak hartzen dituztenak. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fase honetan, Azkaine eta Ezpeletako gizarte eragileei hitzarmenaren mamia eta **engaiamendu** motak aurkeztuko dizkiegu Nola, lotura horren ildotik, Elizatik urrundu badira ere frango euskalzale, nola beraz jarraikitzen diren «**engaiamendu** kultura» batean, politika, kultura eta ekonomiaren alorretan. Berria - Euskal Herria

Engaiamendu politikan sartzeak sor dezakeen beldurra aipatu zuen. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurtengo hunek ere ildo beretik joan behar luke, ikusiz gero eta Herriko Etxe gehiagok dutela euskararen erabilpen **engaiamendua** hartzen. Herria

Finantza **engaiamenduak** nahi ditugu, hizkuntza politika bat abian ezartzeko eta enpleguak sortzeko. Berria - Euskal Herria

5 *ipar* lehiaketa edo kideko batean parte hartzeko izena ematea.

Engaiamendua 10 euro muslari bakarrarentzat. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere engaiamendua (4); **botere publikoen engaiamendua** (3); **engaiamendu bat** (4); **engaiamendu handiagoa** (3); **engaiamendu hori** (8); **engaiamendu hori hartu** (4); **engaiamendua eskatu** (3); **engaiamendua eta** (3); **engaiamendua ez** (3); **engaiamendua hartu** (12); **engaiamendua hartu dute** (4); **engaiamendua hartu zuten** (3); **engaiamenduak bete** (3); **eta engaiamendu** (5); **eta engaiamendua** (5); **eta sustatzeko engaiamendua** (3); **hartutako engaiamenduak** (3); **publikoen engaiamendua** (3)

---

engaiatu, engaia, engaiatzen **1** da/du *ad* promesa edo kideko batez lotu. ik **konprometitu**.

BAM **engaiatu** da oraino iragan sei hilabeteetako soldaten osoki ordaintzera. Herria

Enpresa buru alemanak **engaiatuak** dira Baionako lantegiaren bastiza desmuntatzera. Herria

Bagenekien zeri **engaiatzen** ginen. Menane Oxandabaratz

Irisartarrekin nahi dugu elgarrizketa sortu eta **engaiatzen** gira herriaren alde obratzea. Herria

Bertsolariek, eta orokorki mugimendu honetan **engaiatu** direnek, gune eta formatu berrietan saiatzearen alde jokatu dute. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hogoita zazpigarren Herriko Etxea da, lehena Amikuzen, euskararen alderako hitzarmenean **engaiatzen** dena. Herria

Gure bizia osoki **engaiatu** diagu borroka hortan. Herria

Denek onartu dute zerbait behar zela egin berpizteko eta hala **engaiatu** dira hautetsiak. Herria

Gizartean **engaiatua** izatea, lan bat eginez eta ezkonduz. Piarres Aintziart

Berpiztutako Bataviar gisa garai batez Napoleonen anaia batek gidaturiko handitasun amets frantziar batean **engaiatu** eta, mende bat geroago, lau urtez alemaniar gudarosteek suntsitua izan nahi duen oro. Iban Zaldua

Borrokan **engaiatzeak** hori galdegiten zuen. Eneko Bidegain

Ene nagusi berria Sarre-ko gizon tipito bat zen, irri guti, lehenago "brigades internationale"s-etan **engaiatua**. Marzel Etxehandi

Irakurle hori, liburu honekin **engaiatzen** bazara, pentsa ezazu idaztea, irakurtzea eta itzultzea ere maitasunezko jarduerak direla. Jon Alonso

Hitzez **engaiatu**. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Gizon **engaiatua** dela. Piarres Aintziart

Jon ere lagun **engaiatua** zen; mendiarekin, ordea. Aingeru Epaltza

Bertsolari, gai-jartzaile, kritiko, epaile, irakasle, antolatzaile, bertsozale **engaiatu**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gisa guziz, zenbait hilabeteren buruko soldado **engaiatu** nahi zuela eta munduaren beste puntarat joatekoa zela nehondik ahalaz. Janbattitt Dirassar

Liburu hau ere lehen aipatu dizkiadan beste autoreen eleberri horien antzera-edo bukatzen dela, haienak bezala literatura **engaiatua** baita. Mikel Hernandez Abaitua

Orain dela hamar bat urte dogmatikoki eta sutsuki literaturaren autonomia defendatzen zuten zenbait autore gaur egun eleberri **engaiatuak** edo tesi nobelak argitaratzen ari dituk. Mikel Hernandez Abaitua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde engaiatu (3); **engaiatu behar** (3); **engaiatu da** (9); **engaiatu dira** (4); **engaiatu zen** (3); **engaiatua da** (3); **engaiatua izan** (3); **engaiatua zen** (3); **engaiatuak dira** (6); **engaiatzen da** (7); **engaiatzen dira** (3); **gizon engaiatua** (3)

engainabide *iz* engainatzeko bidea.

Gedeonen amarrua edo **engainabidea**. Elizen arteko biblia

Ez eraman edonor zeure etxera, ugari baitira maltzurraren **engainabideak**. Elizen arteko biblia

Engainabide guztiak erabiliko ditu galbidean daudenak hondatzeko, hauek ez baitzuten salbatuko zituen egia maitatu nahi izan. Elizen arteko biblia

---

engainadore *izond/iz* engainatzailea.

Bi lapur **engainadore** horien (hitza/ekintza) arteko ardaila duzu, hain zuzen, egungo gizarteak bizi duen antzerki mixerablea. Patziku Perurena

Eskean egiteko gure modu horrek, noski, oraindik ederki nabari du, endemas Fraintzi aldetik, erromes bidea aitzaki, sartutako gizajo itxurako jende talde alderrai, alproja, **engainadore** haien kutsu negartia. Patziku Perurena

---

engainagarri *(orobat **enganagarri** g.er.)* **1** *izond* engainatzen duena.

Ilusioa estimatua izan da garai batzuetan, irudikapenaren xede desiragarri gisa, eta kritikatua beste garai batzuetan, helburu gaizto, **engainagarri** eta alferreko bezala. Josu Zabaleta

Nola bihurtu zara niretzat itxura huts den ur **engainagarri**? Elizen arteko biblia

Horra euskal senak zeinen dotore uztartu dituen eperraren kantu **engainagarria** eta maitalearen hitz **engainagarria**, maitasun liluraren ondorenak adierazteko orduan. Patziku Perurena

Bakarrik gelditu nintzen orduko, eztitasun **engainagarri** hura berehala iraungi zen, eta bertze sakrifizio bat egiteko betebeharra baizik ez zidan utzi. Jon Muñoz

Errusiak esan zezakeen, egiantz **engainagarriz**, bere burua salbatu zuela bere ahaleginez eta munduko proletalgoaren gainerakoa salbatuko zuela bere jarraibidea eskainiz. ederki zekien bera ez zela halako zama eramateko sortu, handitasunezko ikuskizun haiek amu **engainagarri** hutsa ez balira ere. Iñaki Mendiguren

Ezereztzat jotzen zituen aberastasun **engainagarriak**, alditxo baterako hartutako jabetza baino ez direnak. Askoren artean

Filologo edo hitz-maite ona, izan ere, fidakaitz eta sinesgogor amorratua baita dotrinanteekiko, fedekalte eta fedegalgarria, letrazko irudipen **engainagarrien** ezeztatzailea. Iñaki Segurola

Gertaeren irakurketa **engainagarria** zen hura, a posteriori eginiko irakurketa. Jon Muñoz

Honelako kantak, jeneralean amodio galdua kantatzeko paratuak izaten baitira, eta inozentzia osoan iragandako liluraldi **engainagarria** salatzeko, eta penak kontatzeko. Patziku Perurena

Batere tranparik gabe, logoen zimardika eta hitzerdika **engainagarrietan** alferrik galdu gabe. Kalea esaten zaio oraino, hitzaren fetitxismo **engainagarri** beraren obraz, kutxa-bizitzen eta diruaren saltokien artean hutsik gelditzen den tarteari. Iñaki Segurola

Markagailua **engainagarria** da oso, Bera Bera jaun eta jabe izan baitzen. Berria - Kirola

Kanpo-proletalgoak lorturiko onurak **engainagarriak** dira beti, eta atzerriko zibilizazioak lorturikoak ez dira iraunkorrak gertatu ohi. Iñaki Mendiguren

Laguntzen programa iragartzeko Lakuak plazaratu zuen idatzia «publizitate **engainagarria**» zela kritikatu zuen Peñak. Berria - Euskal Herria

Zelako etekina eta txinparta idazle trebe baten eskuetan giltza berdinen ispilu **engainagarriak**! Berria - Kultura

Pintura osoa komedia dela erakusten du, begien **engainagarri** eta tronpagarri, begiek ikusten dutena gezurtatzen baitu eta begiek baieztatzen dutena ezeztatzen. Felipe Juaristi

2 (izen gisa)

Haren **engainagarrien** ezkutuko mekanismoak ezagututa, kapelu-zulotik bandera hiru koloreko bat ateraz [...] gero ere batere harrituko ez litzatekeenaren moduan. Ander Irizar

Konbentzituta zegoen ardoa bezalako hipnotikorik ez zegoela, eta sulfonala eta klorala **engainagarri** hutsak zirela, harekin alderatuta. Josu Zabaleta

Eta gero, begiak maltzurkeriazko tanta lodiez pelatuak, destainazko ukituak ahotsean, kanona, kanona, horiek xorakeriak ditützü; dostetazko ume-**engainagarriak**. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **engainagarri eta** (6); **engainagarria da** (5); **engainagarriak izan** (3); **eta engainagarriak** (3)

---

engainagarritasun *iz* engainagarria denaren nolakotasuna.

Oker gaitza da sinestea ortografia aldatzea dela egin beharreko lehen gauza, idazkeraren **engainagarritasuna** onartuz gero. Isabel Arrigain

---

engainakor *(orobat **enganakor**)* **1** *izond* engainatzen erraza.

Zakur zaharra ez da **engainakorra**. Gotzon Garate

2 engainagarria.

Haien ikustea hilkorren eskarmentu izan dadin eta hauek saia daitezen itsaso gaiztoaren amarruak, oldarra eta azpikeria ekiditen eta harekin inoiz ez fidatzen, ezta ur barean xarma **engainakorrez** irribarre egiten dienean ere.Ez nuen hitzegiteko gutiziarik,sinestera heldua nintzelako elearen haria oraino ere **engainakorra** zela. Xabier Amuriza

---

engainamendu *iz* engainatzea, engainua.

Zeren eta pentsatzen bainuen batzuetan ezen deabruak baizik ezin zitzakeela biderat ene urrats gaixto haiek, eraman nindutenak, alde batetik, **engainamendu** hartarat. Joan Mari Irigoien

Zeren iruzurtzat eta **engainamendu** handitzat baitzituen sainduen mirakuluak eta mirakulukeriak. Joan Mari Irigoien

Beroiek bezala behar du sozialista batek, bestela gezurretan ari da, **engainamenduan** bizi da. haren txakurraz baliaturik eta txakurraren baitan sarturik, **engainamenduaren** aitzinatzeko eta halakatzeko, maliziarik maliziatsuenaz. Iñaki Heras

Nik ezin segura diezazuket nolakoak izan ziren aitaren negozio haiek: sal-erosi nahasiak izan ote ziren edo sal-erosi garbiak, lukurreriazko tratu gaixto **engainamenduz** beteak edo **engainamendu** gabeak. Joan Mari Irigoien

---

engainamundu *iz adkor* engainatzailea.

Baliteke antzinako sorgintzat edo aztitzat joa izatea gaurko sikologoa egunen batean, edo garai batean sekulako arrakasta izandako **engainamundu** gisan ikusia izatea. Patziku Perurena

Baina, hitzak **engainamundu** ergel batzuk izaten dira maizexko. Patziku Perurena

Eta nik diot, nor ez da bizi, bi oineko **engainamundu** zelebreotan, haizea saltzetik? Patziku Perurena

---

engainari *izond* engainatzailea.

Dudarik gabe, ez zara buru-arina, ezta **engainaria** ere; eta etsialdi honetan berean ere, laidozko susmo batek ez du nire arima ximelduko. Jon Muñoz

Arin eta **engainaritzat** naukazu jadanik; eta nire kontra neurriz gain baliaturik nihaurek aitortuak dizkizudan zenbait hutsegite, plazer duzu orduan nintzena eta orain naizena nahasirik. Jon Muñoz

---

engainati *izond* engainatzailea.

Hura entzun nuenean, ez nion sinetsi, zeren baitakizue nolakoak izaiten diren gauza hauek, eta zenbat gezurti eta **engainati** dagoen mundu honetan. Joan Mari Irigoien

---

engainatu , engaina, engainatzen *(ETCn **6.258** agerraldi; orobat **enganatu** g.er.)* **1** du *ad* gezurrarren edo maltzurkeriaren bidez egia ez dena egiatzat sinetsarazi, iruzur egin. ik **atzipetu**.

Eliseoren morroiak Naaman **engainatu** . Elizen arteko biblia

Zer, beste gizajotxo bat **engainatzen** ? Anjel Lertxundi

«Nor **engainatu** nahi dute?», galdetu dute. Berria - Euskal Herria

Gizartea **engainatu** dute PPk eta PSEk. Berria - Ekonomia

Ez zaitut **engainatu** nahi, ez zara sekula nire amodioa garaitzera helduko. Jon Muñoz

Aldi hartan, lege-hausle batzuk sortu ziren Israelen eta jende asko **engainatu** zuten, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

Banketxeetako orriak imitatzen dituzte iruzurgileek, eta erabiltzaileak **engainatzen** dituzte beren datuak idatz ditzaten. Berria - Gaiak

Eta aldez aurretik sumatua behar duzu ez dudala **engaina** nazaten jasanen. Jon Muñoz

Ez zaitzatela **engaina** Ezekiasek, ezin izango baitzaituzte libratu nire eskutik. Elizen arteko biblia

Zergatik **engainatu** neure burua eta bilatu pozbidea horren garaipen urrian? Ander Irizar

Banekien, ordea, pentsamendu horrekin neure burua **engainatu** besterik ez nuela egiten. Ramon Saizarbitoria

Bere burua **engainatzen** duen gizakia errukigarri azaldu behar zaigu; eta besteak **engainatzen** dituena gaitzesgarri. Imanol Unzurrunzaga

Ez beza inork bere burua **engaina** ! Elizen arteko biblia

Ez dut **engainatzen** , ez nire burua, ez irakurlea. Ana Urkiza

Zerorrek zeure burua **engainatu** nahi ez baldin baduzu bederen. Xabier Kintana

Lilurarekin halako antza duen denborak **engainatua** ninduen berriro ere. Bernardo Atxaga

Mundu guztiak kontrakorik esango balu ere, ni ezin ninteke **engainatuta** egon; ez nauzue merezi, baina, hala ere, nik zuek salbatzeko lan astuna hartuko dut... Anjel Lertxundi

Kabroi horrek denok **engainatuta** eduki gaitu. Harkaitz Cano

Engainatuta , beti bila ibiltzera kondenatuta, ez dagoena ez baita inoiz aurkitzen. Lourdes Oñederra

Etxera **engainatuta** eramaten dituen neska gaixoen esplotatzailea. Josu Zabaleta

Ez gaitzala inork **engaina** . Imanol Unzurrunzaga

Ez ote nauzu haren egoeraz **engainatzen** ? Jon Muñoz

Enkargua genuen, bada, Errusiara joanaraztea, anaiak libratzeko promes faltsuarekin **engainatuta** . Matías Múgica

Engainatzeko grina unibertsala da, gazte, eta behin gizaki batek gustua hartutakoan, ezin da inoiz sendatu. Oskar Arana

Dementorrak ezin dira **engainatu** trikimailuz edo mozorroz. Iñaki Mendiguren

Gehienak iruzurrez **engainatuak** . Gotzon Garate

2 irud/hed

Ibilaldia egingo dugu, gero sabela **engainatzeko** mokaduaren baten bila joango gara eta harresian jan eta edango dugu aparteko goiz honi begira. Agustin Otsoa

Galderrek pentsatu zuen Hyde parkean ez zegoela hotza **engainatzerik** . Lutxo Egia

3 (adizlagun baten eskuinean)

Ederki **engainatu** gaituzte. Oso **engainatuta** dago maitasunean, lehen aldiz, izen bat ahoskatzea erraza dela uste duena. Jon Alonso

Badakit halaber ezen, ni itsuski **engainatu** izana ez askietsirik, beldurrik ez duzula karia horretara harrotzeko, zeure buruaz arras bozkariatzeko. Jon Muñoz

Azalera handiak pixkanaka utzi eta auzoko denda txikira joaz hasiko gara berriro, hiper, mega eta horrelakoek maiz eta larriki **engainatu** gaituztela frogatu eta sinetsitakoan. Edorta Agirre

Nola pentsatuko nuen berriro **engainatu** behar nindutela? Antton Olano

Baina hala egin bazuen, hobeki **engainatzeko** izan zen, eskaera eginez gero, Goazen gaztelura, era txarrean erantzungo zuelako beldurrez. Jon Alonso

Rossetti-k ez zion tratu onik eman, eta etengabe **engainatzen** zuen beste modelo batzuekin. Ramon Saizarbitoria

Gobernua ez zen nahita **engainatzen** saiatu. Berria - Mundua

Gaineratu beharko da hala pentsatzen dutenak goitik behera **engainatuta** daudela. Jon Alonso

4 (maitasun kontuetan)

Nafkah lizuna zen, eta etengabe **engainatzen** zuen beste deabruekin. Koro Navarro

Senarrak ez du jotzen, ez du **engainatzen** : edan egiten du, mozkorturik etxeratzen da gauero. Monika Etxebarria

Larunbatean, lehenengo aldiz, Elena bere emaztea **engainatu** du Karlosek. Iban Zaldua

Emazteak uste baldin bazuen gaua nesketan galtzen zuela, handizki **engainatzen** zen, Txoko nesketan ez zelako nehoiz "galtzen". Itxaro Borda

Laura Norarekin **engainatu** nuenean ez nintzen ezta errudun ere sentitu. Mikel Hernandez Abaitua

Eta zenbat aldiz **engainatu** ninduen hirekin, nire adiskide bakarrarekin, Krisztina nire emazteak, nire bizitzako maitasun benetako eta bakarrak? Xabier Olarra

-Eta emakume horiek beren senargaiek **engainatzen** dituzte benetan? -galdetu zuen Luluk, alderdi sozialak baino indibidualak kezkatuago. Josu Zabaleta

Egun batez bere maitalea **engainatzeko** asmoz irtenik, euritan hoztu zen, eta hil egin zen. Josu Zabaleta

Kontxak ez naik **engainatuko** . Josu Zabaleta

Behin eta berriz **engainatzen** zuen emazteak Giovanni, harik eta egun batez senarrak pastel bat janarazi zion arte. Jon Muñoz

5 (era burutua izenondo gisa)

Hauek, guztiona den argi iraunkorrik gabe eta pobreziak jotako botere pean makurtuta, nolabaiteko jaurerri pribatuen jabe izan nahi dute eta morroi **engainatuengandik** jainkoaren ohoreak eskatzen dituzte. Imanol Unzurrunzaga

Ez zituen soldadu italiar **engainatuen** gorpuak usaindu nahi. Lutxo Egia

Gondorko jendaila eta haren jarraitzaile **engainatuak** Anduinen beste ertzera itzuliko dira berehala. Agustin Otsoa

Ni hasiera-hasieratik senar **engainatuarekin** identifikatu nintzen, zergatik ez badakit ere. Joxean Agirre

Egiazko arazoa bien artekoa zela, Costaren eta Raimundo Silvaren artekoa, **engainatuaren** eta engainatzailearen artekoa. Jon Alonso

Prima ballerina-k ondo konpondu du Gisele-ren itxura, hots, maitemindua dagoen pertsonai errugabearena eta **engainatuarena** . Berria - Kultura

6 nahasi.

Harategiz **engainatzen** zira. Itxaro Borda

Anitzetan bidez **engainatzen** zen, hutsa zein bekatua preziorik garestienean ordainduz. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begiek engainatu (3); **bere burua engainatu** (12); **burua engainatu** (25); **burua engainatu nahi** (10); **burua engainatu nahian** (3); **ederki engainatu** (3); **engainatu behar** (5); **engainatu du** (3); **engainatu duen** (3); **engainatu dute** (3); **engainatu egin** (44); **engainatu egin duela** (3); **engainatu egin gintuztela** (3); **engainatu egin ninduen** (3); **engainatu egin zuela** (6); **engainatu egingo** (6); **engainatu egiten** (16); **engainatu egiten du** (5); **engainatu eta** (16); **engainatu ez** (4); **engainatu gabe** (3); **engainatu gaituzte** (5); **engainatu izana** (3); **engainatu nahi** (39); **engainatu nahi dute** (3); **engainatu nahi ez** (4); **engainatu nahi izatea** (3); **engainatu nahian** (8); **engainatu nauzu** (6); **engainatu ninduela** (3); **engainatu ninduen** (6); **engainatu ninduten** (4); **engainatu zeuen** (4); **engainatu zeuen buruak** (4); **engainatu zituen** (3); **engainatu zuen** (10); **engainatu zutela** (3); **engainatu zuten** (3); **ere engainatu** (7); **eta engainatu** (11); **eta engainatu egin** (3); **ez engainatu** (7); **ez engainatu zeuen** (3); **gero engainatu** (3); **geure burua engainatu** (4); **gizartea engainatu** (3); **hark engainatu** (3); **horrek engainatu** (3); **inor engainatu** (5); **jendea engainatu** (5); **nauzu engainatu** (3); **neure burua engainatu** (4); **nola engainatu** (6); **nor engainatu** (5); **nor engainatu nahi** (3); **zergatik engainatu** (7); **zergatik engainatu nauzu** (4); **zertarako engainatu** (4); **zeure burua engainatu** (3); **zuen engainatu** (3)

engainatua izan (4); **engainatuta egon** (3); **engainatuta sentitzen** (3); **ez nauzu engainatuko** (3); **inor engainatuko** (4); **nauzu engainatuko** (3)

bat engainatzeko (3); **bat engainatzen** (3); **batekin engainatzen** (3); **bere burua engainatzen** (13); **beren burua engainatzen** (3); **burua engainatzea** (3); **burua engainatzeko** (4); **burua engainatzen** (39); **burua engainatzen ari** (3); **burua engainatzen du** (4); **burua engainatzen ez** (3); **buruak engainatzen** (5); **du inor engainatzen** (3); **engainatzeko eta** (3); **engainatzeko moduko** (3); **engainatzen ari** (9); **engainatzen ari da** (5); **engainatzen dituzte** (4); **engainatzen du** (5); **engainatzen duela** (5); **engainatzen dute** (4); **engainatzen dutela** (3); **engainatzen duten** (3); **engainatzen eta** (3); **engainatzen ez** (8); **engainatzen saiatu** (7); **engainatzen saiatu zirela** (3); **engainatzen zuen** (3); **engainatzerik ez** (3); **eta engainatzen** (3); **ez engainatzeko** (3); **geure burua engainatzen** (4); **inor engainatzeko** (3); **inor engainatzen** (6); **neure burua engainatzen** (10); **nola engainatzen** (5); **zeure burua engainatzen** (3)

---

engainatzaile *(orobat **enganatzale** g.er.) izond/iz* engainatzen duena.

Herri errebeldea, seme **engainatzaileak** dira benetan, Jaunaren irakaspena ez baitute onartu nahi. Elizen arteko biblia

Deabru **engainatzaile** guztiz ahaltsua. Joan Mari Irigoien

Berriz ikusiko dut emakume hori neure aurrean belauniko, dardaraka eta malkoz bustia, bere boz **engainatzaileaz** urriki galdez niri oihuka. Jon Muñoz

Ez zaitzatela lilura mundu **engainatzailearen** irudipen hutsalek. Askoren artean

Hango profetak, ahobero eta **engainatzaile**. Elizen arteko biblia

Emakume horrek ez du, gure emakume pinpirinen gisara, behako gezurtirik, batzuetan seduzitzaile eta betiere **engainatzailerik**. Jon Muñoz

Horrela askatasunaren aldeko bidelapur nomada izan nintekeen tsarraren alderdiaren aurka, De Gasperi **engainatzailearenaren** aurka, alegia. Pello Lizarralde

Ausardia handiko **engainatzaile** bat baizik ez zen. Josu Zabaleta

Jauna, gogoratu dugu **engainatzaile** horrek, artean bizi zelarik, esan zuela: "Hiru egunen buruan piztu egingo naiz". Elizen arteko biblia

Egiazkoa arazoa bien artekoa zela, Costaren eta Raimundo Silvaren artekoa, engainatuaren eta **engainatzailearen** artekoa. Jon Alonso

Gizonak eztitasunez irribarre egin eta, **engainatzaile**, erantzun zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

---

engainatze *(orobat **enganatze**) iz* gezurrarren edo maltzurkeriaren bidez egia ez dena egiatzat sinetsaraztea, iruzur egitea.

Boterea irakiarren esku ezartzea **engainatze** bat besterik ez da, honek helburu nagusitzat daukalarik erresistentzia armatuaren geldiaraztea. Berria - Mundua

Nire **engainatzeaz** gaztigatzeko baten bati uzkian ostikoa eman niolarik ez zen den mendrenik ere mugitu. Itxaro Borda

---

engainazale *iz* engainatzailea.

Engainazalea engainatu duenari eman bekio ez pena baina sari, ondo baino hobeto egin du Baptistari lapurtuta. Bego Montorio

---

engainio *(orobat **enganio**)iz* engainua.

Jainkoak zonbait aldiz bekatoreak gaztigatzen dituela mundu huntan berean, hekien izpiritua **enganioan**, itsumenduan erortzerat utziz, eta hori dela guretzat gaitz handienetarik bat. Xipri Arbelbide

Sofismazalekeria [...]: arerioaren eztabaida-metodoa, norberarenaren aldean gezur eta **engainioz** hornituagoa. Xabier Olarra

Baliatu direno zerbait **enganioz**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

engainu **1** *iz* engainatzea edo engainatua gertatzea; horren ondorioa. ik **iruzur**.

Gaizkileen buruan **engainua**, bakea aholkatzen dutenengan poza. Gogora datorren oroitzapen oro ere **engainua** da, ziriak sartzen baitizkio oroimenari. Elizen arteko biblia

Hawthorne-ren eskuizkribuaren iruzurra amarrua baizik ez zela, **engainu** bat beste **engainu** baten barruan. Oskar Arana

Lopetegik gezurra eta **engainua** besterik ez zuen ikusi hizlari horien esanean. Berria - Kultura

Luzaroan bizi eta zoriontsu izan nahi duenak, mihia gorde behar du gaitzetik, eta ezpainak **engainutik**. Elizen arteko biblia

Engainutik atera denaren tonua da. Josu Zabaleta

Ez zuen luzaro iraun, **engainuan** oinarritutako bertutearekin gertatu ohi den bezala. Askoren artean

Ez zegoen gure arteko **engainurik** ez gaizkiulerturik. Anjel Lertxundi

Lukrezioren kosmoa ere suntsigarria da: gai honetan ez du gezurrezko kontsolapenera leramakeen **engainurik** nahi. Xabier Amuriza

Itxura eder eta nabarmen guziek atzetik izan ohi duten **engainua** dizu adierazten eperraren sinbologiak. Patziku Perurena

Bere ideal nobleen arabera bizitzeko gai izan ez, eta **engainuaren**, ustelkeriaren eta bortizkeriaren atzaparretan jausi zelako. Imanol Unzurrunzaga

Literaturaren eta **engainuaren**, iruzurraren arteko harremanak ez dira berriak; hein batean, literatura guztia da iruzur edo simulakro. Iban Zaldua

Itsaso jabalaren lausengu traidoreak ezin zuen inor erakarri bere uhin irrigileen **engainura**. Xabier Amuriza

Denengan **engainua** ereiteko moduan hitz egiten zuen. Edorta Jimenez

Fraideek ere ezagutzen baitzituzten **engainuaren** trikimailuak, sonata zuripeko disimuluaren artean oso gora iritsiak baitziren itxuraz soilik onartzen zuten erlijioan. Felipe Juaristi

Engainuaren amarrua batzuetan ondo ateratzen da, eta besteetan ez hain ondo. Rafa Egiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Engainu biribila. Joxe Azurmendi

Engainu lotsagarri baten egile izan nauzu. Patziku Perurena

ETAren aurka baino gehiago Gobernuaren aurka manifestatzea eta **«engainu** masiboa» egitea egotzi dio PPri PSOEk. Berria - Euskal Herria

Engainu hutsa da hori, eta zugan ez dute besterik aurkituko. Imanol Unzurrunzaga

Jakizue egiaz, dena deabruaren tentaldia eta **engainu** maltzurra dela. Askoren artean

Borondatezko **engainua**, agindu gezurrezkoak, faltsukeriak... Koro Navarro

Dualisten iritziz, guztizko **engainuan** bizi gara, egiatzat hartu ohi ditugun uste gehienak berez faltsuak baitira. Askoren artean

"Urrezko dukat eta diruak" ez direla **"engainu** txarra bazter batera apartatzeko lehengo sinismen zaharrak". Joxerra Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Israelen bizirik geldituek ez dute aurrerantzean bidegaberik egingo, ez gezurrik esango, ez beren ahotan **engainu**-hitzik izango. Elizen arteko biblia

Tel Avivek, aldiz, «**engainu** kutsua» hartu zion Haniaren tonu moderatuari. Berria - Mundua

4 ***engainuz*** *adlag*

Zer dela-eta alde egin duzu horrela, isilka eta **engainuz**, niri ezer esan gabe? Jose Antonio Mujika

Don Fernandok, **engainuz** bereganatu eta gero, abandonaturiko neska. Patxi Ezkiaga

5 ***engainuzko*** *izlag*

Jaunarentzat higuingarri dira pisu faltsuak, ez dira bidezko **engainuzko** neurgailuak. Elizen arteko biblia

Zein kaltegarria den lapurreta bortitzen zigorrak eta lapurreta **engainuzkoenak** ez bereiztea. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

deabruaren engainua (4); **engainu bat** (5); **engainu baten** (3); **engainu hutsa da** (4); **engainua da** (4); **eta engainu** (6); **eta engainua** (5)

---

engainuka *adlag* engainuz.

Gero eta tematsuago ari izan zitzaion Girolamo: amarruka, otoizka, **engainuka**, baita mehatxuka ere. Jon Muñoz

---

enganagarri ik **engainagarri**.

---

enganakor ik **engainakor**.

---

enganatu ik **engainatu**.

---

enganatzaile ik **engainatzaile**.

---

enganatze ik **engainatze**.

---

enganio ik **engainio**.

---

engantxatu, engantxa, engantxatzen **1** *du* ad lotu.

Eta Nemiaren orrazia Santosen ilean **engantxatzen** zenean, ez zen srek entzuten edo krek-krek-krek entzuten, orraziak ileetan **engantxatzen** direnean entzuten den moduan. Unai Elorriaga

2 irud/hed

Inner Duok «erabat **engantxatuta**» dauzka. Berria - Kultura

3 (drogetara)

Gutako asko **engantxatu** zituan, eta betiko agur! Pako Aristi

---

engeiamendu ik **engaiamendu**.

---

engeiatu ik **engaiatu**.

---

engendratu, engendra, engendratzen du *ad* sortu, sorrarazi, erne.

Sei hilabetetan ezkontzen dira, haurrak bi urtetan dituzte **engendratzen** eta bakarrik zazpi urtez dira bizitzen. Aurelia Arkotxa

Arren arabera dabiltzalarik haurrak **engendratzen** dituzte eta emeen arabera berriz, kontzebitzen eta ukaten dituzte. Aurelia Arkotxa

---

engisatu, engisa, engisatzen du *ad* galkatu.

Komuzki, uste izan dugu haurren heztea ahateen **engisatzea** bezala zela, eta behin burua betez geroz, ezin zela gehiago sakatu. Herria

Eta ondoko zerragian, hurrengo abenduan galkatuko edo **engisatuko** ziren antzara kalapitatsuak. Itxaro Borda

---

engoitik *(orobat **engotik** g.er.) adlag* **1** dagoeneko, honezkero, ordurako; hemendik aurrera, handik aurrera.

Engoitik herritarren kopurua doblatu da. Berria - Harian

Itsasontziak portura iritsi bide dira **engoitik**. Elena Touyarou

Badakigu **engoitik** zer gertatu zen Frantziako erreinuan, XVIII. mende hondarrean. Piarres Xarriton

Kantua **engoitik** denek ezagutzen dute bainan araberako urratsik ez da biziki egiten. Herria

-Amatxi... **engoitik** zenbatgarren aldia da istorio hori kondatzen didazula. Eneko Bidegain

Ohartua zinen **engoitik**, herrialde hau zinez biziarazten zuten funtsezko ekintzak garapen orokorraren eskema zehatzetarik kanpo obratzen zirela. Itxaro Borda

Engoitik hilik egonen da Omar Lakda. Xabier Montoia

Gizondua **engoitik**, lagun batzuekin zetorren, Irazetan justu kafea zerbitzatu zen unean. Itxaro Borda

Ez da **engoitik** baserritarretara jolasten zuen lehengo ume hura. Oskar Arana

Biak ohe batean, ez amorante **engoitik**, baizik eta etsai. Oskar Arana

Ezen badugu **engoitik** euskaraz idazteko gai den psikanalista bat baino gehiago. Piarres Aintziart

Zorionaren gailurra itxuratzen zuen kolorezko argazki zabal hura ez zen **engoitik** oroitzapen bat baizik! Daniel Landart

Beraz, ez nauk **engoitik** on nagusi izateko. Daniel Landart

Sakabanaketarekin, presoak ez dira **engoitik** lehengoak, asko ahuldu dira. Jokin Urain

Edozein huskeriari buruz galde egiten ikasi baduzu, libre zara **engoitik**: alaia, irekia, estzeptikoa, sinesgaitza, bihurria, zeure nortasun puxkaren jabe. Patziku Perurena

Bainan zer inporta du, ni han nintzan sortu / Eta hantxet nahi dut **engoitik** zahartu. Michel Oronoz

Bada, Fénelon-ek aipu duen ene begien atseginerako hautatuko nituzkeen lekuetan sar ezazu **engoitik** Miarritze ere Tréport, Etretat eta Bourgd'eau-ren ondoan. Koldo Izagirre

Har itzazu **engoitik** bizitzaren arrosak. behin hilaren bukaeran salmenta egindakoan, dirua ez zen **engoitik** arazo izango. Koldo Izagirre

Literatura unibertsaleko pertsonaia bat aukeratu behar duzu, eta hemendik aurrera, fikziozko pertsonaia horren baitan biziko zara eternitate osoan, dela Emma Bovary edo dela Dorian Gray, dela Sherlock Holmes edo dela Robin Hood, eta berak bezala jokatu eta sentituko duzu **engoitik**, ez duzu zure aurreko bizitzaren arrastorik gogoratuko. Harkaitz Cano

Engoitik, ez da beharrezkoa izango funtzionarioak saldoa zuzenean beha dezan: mendi gailurrean gaudela, meatzean gorderik, basamortuan, munduko parkerik arraroenean: orduan ere kontrolpean izango gara. trinketeko bi lagunak, biek ere partida bana galdua, eta **engoitik** segidarako amets guti. Markos Zapiain

Engoitik herrien ardura izanen da eta laur urtez behin hustu beharko dituzte hobi septikoak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

badakigu engoitik (4); **da engoitik** (5); **dira engoitik** (5); **ditu engoitik** (4); **du engoitik** (3); **dut engoitik** (3); **dute engoitik** (3); **engoitik ez** (6); **engoitik ez da** (4); **engoitik ezin** (3); **eta engoitik** (11)

---

engominatu, engomina, engominatzen du *ad* gomina eman.

Ez zen erraza sinesten, ez, aurrean neukan morroia, geratzen zitzaion ile apurra sarritan **engominatzen** zuena, halako iraultzaile itxuraz ibil zitekeenik urte batzuk lehenago. Jon Arretxe

---

engorroso *izond* gogaikarria.

Nahiko **engorrosoa** zen Nemiarentzat etxetik irtetea. Unai Elorriaga

Eta **engorrosoa** zen hori. Unai Elorriaga

---

engotik ik **engoitik**.

---

engoxatu, engoxa, engoxatzen da *ad* zorabiatu, konortegabetu.

Kultur erabakitzailea **engoxatzeko** puntuan zegoen, hark halaber, nonbait bere ekinaren mamiaren funtsa argi zekusalako "proiektu zabalago baten barru-barruan". Itxaro Borda

---

engrama *iz* nerbio bulkadek burmuinean uzten duten aztarna, oroimenaren oinarri fisiologikotzat hartzen dena.

Halako eraldaketak, **engrama** neural oso konplexuen arteko jauziak, "oroitze" eta "ahazte" terminoetan bizi ohi dira. Xabier Olarra

Virgilek, ordea, mende erdi batez ahaztuta egona berak sortutako ikusmenezko **engrama** guztiez, orduak eman behar zituen egunero ikerketa berariazko eta sistematikoan, eraldaketa horiek ikasi edo berrikasiko bazituen. Xabier Olarra

Izaera edo portaera bereganatzeko egintza bat ikusten dugu [...] zeinaren bitartez beste nortasun baten trebetasunak, sentipenak, **engrama** neural osoak, zerebroan nagusitzen baitira eta pertsona bat, haren nerbio-sistema osoa, birmoldatzen baita, emanaldiak irauten duen bitartean. Xabier Olarra

---

engranaje **1** *iz* elkar ahokatzen duten gurpil horztunen multzoa, mekanismo baten zati dena.

Iratzargailuaren **engranaje** zaharrek beren tik tak tik tak etengabea jarraitzen dute. Joseba Sarrionandia

Beste **engranaje** baten esaneko ziren guztiak, erloju batean bezala. Josu Zabaleta

Engranajeak behar duen olio-tanta. Jon Alonso

Engranajeak bezala uztartzen diren argudioak erabiltzen ditu egunezko zientziak, ziurtasunaren indarra duten emaitzak. Juan Garzia

Engranajeari hondarra botaz. Iñaki Heras

2 irud/hed

Ministroa **engranajearen** torloju xumea baizik ez da. Jon Alonso

Desordena baino, injustizia nahiago duen **engranaje** baten aurka ari ziren borrokan. Harkaitz Cano

Elkarrekin inoiz doitzen ez diren **engranajez** egina dago gure mundua. Josu Zabaleta

Administrazio batean, ordea, giza arbitrariotasunaren alde txarrak eragozteko pentsatua denez gero, **engranajeek** ez dute uzten gizonak esku hartzerik. Josu Zabaleta

Zer gertatuko da zure logika **Engranajearen** logikarekin bat ez datorren egunean? Jon Alonso

Engranaje erraldoi honen barneko atal txiki batzuk gara. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan)

Baina noiz arte funtzionatu behar dute pistoi, balbula, magneto, **engranaje** multzo horiek? Josu Zabaleta

Administrazio guztiz egoki batean, gizakiak **engranaje** eginkizuna baizik ez duela, nagitasunak, prestutasun ezak, justiziarik ezak ez dute zertan nagusi izanik. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

engranaje baten (3); **engranaje erraldoi** (3)

---

engrasatu, engrasa, engrasatzen du *ad* olioztatu.

Batzuetan ohean bertan eseri, pistola gerrian ipini eta, behar bada, arma ilun hura **engrasatzen** hasten zen. Joseba Sarrionandia

Bertan, organojole gazte batek sakristau zaharrari organoa **engrasatzen** erakusteko eskatzen dio, bera falta denerako. Pako Aristi

---

engrasatze *iz* olioztatzea.

Hura zen bera Mugimendukoa izatearen ezaugarria, Mugimendukoa eta gorrien biktima, **engrasatze** hura, pistolaren dirdira hura zen biktorian parte hartu izanaren froga. Joseba Sarrionandia

---

eni *izord* niri. *(ikus beheko konbinatorian* eni *hitzaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da eni (3); **eni beha** (16); **eni beha paratu** (3); **eni beha paratzen** (4); **eni berdin** (4); **eni buruz** (9); **eni buruz itzulirik** (3); **eni ere** (6); **eni eta** (3); **eni ez** (5); **eni galda** (3); **eni iduritzen** (5); **eni so** (14); **eta eni** (15); **ez eni** (9); **ez eni galda** (3); **zaizkit eni** (3)

---

enigma **1** *iz* aski argiak ez diren hitzen bidez azaltzen den igarkizuna; zentzu iluna duelako, ulertzeko edo interpretatzeko zaila den gauza.

Enigma hori argitzeko testurik garrantzitsuena Sokratesen defentsa hau duzu. Markos Zapiain

Izan ere, zer zen arima hilen **enigma** hori, zer esan nahi zuen? Jose Morales

Egunen batean erran beharko dit **enigma** horren gakoa! Jon Muñoz

Testu pitagoriko peto-petoa zen, dudarik gabe, eta zentzu bikoitzez irakurri beharrekoa, noski, sinboloz eta **enigmaz** josita zegoen eta. Jon Muñoz

Jakinduriak iragana ezagutzen du eta etorkizuna asmatzen, esaera zaharrak argitu eta **enigmak** ebazten ditu. Elizen arteko biblia

Ez alferrik izan da mendeetan **enigma** hori pentsalarien buruhaustea. Juan Garzia

Nagusiak igarri dio **enigma** horri. Juan Garzia

Ryan-ek, zer guztiak ikertu (ikerketa hori argumentuaren hiatoetako bat da) eta **enigmaren** korapiloa askatzea lortzen du. Juan Garzia

Denboraren buruan erantzun bat asmatu nuen neure baitan **enigma** harentzat: Egileorrek txurian entregatu zuela azterketa. Xabier Mendiguren Elizegi

Jainkotasunaren eta gizatasunaren **enigma** deszifratzeko ahalegin kontzeptuala da erlijioaren filosofia, bizitzaren eta munduaren **enigma**. Askoren artean

Barkamen ukatuaren **enigma** honek, lege edo politikatik haratago dagoena, errespetu osoa merezi du. Joseba Zulaika

Enigma bat da gaur egun ere oraindik niretzat, zergatik ezkondu ziren Hanna eta Joachim. Joxe Austin Arrieta

Hala ere, **enigma** bat zara oraindik niretzat. Koro Navarro

Baina laster, hiri hau inoiz baino arriskutsuagoa bihurtuko duk gu bezalakoentzat, esan zidan Umbertok nahiko modu **enigmazkoan**. Anjel Lertxundi

Zuhurki eta **enigma** moduan hitz egiten zuen. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hiriarentzat izugarrizko **enigma** zen dena: mezulariak, Hadassi dibortzioaren paperak ekarri zizkiotenak; oporrak pasatuta ere, Avigdor Lublinen geratzea; [...]. Koro Navarro

Ez dut uste badenik, honako euskal kanta sorgin hau baino aproposagorik, hego haizearen **enigma** xoragarri guziak batera biltzeko orduan. Patziku Perurena

Enigma pisuzkoak dira hauek. Xabier Olarra

Atzo bonbardatu zuten; berri hori zekarten egunkari berek bestelako **enigma** bat proposatzen zioten Ingalaterrari: [...]. Juan Garzia

Ruche jaunaren urduritasuna mozorrotu nahian zebiltzan hitz haiek: aritmetikako **enigma** hori ebazteko gauza ez izatearen beldur baitzen, hain zuzen ere. Jon Muñoz

Mikeli iduritu zitzaion ordinagailu ergel horrek egiazko **enigmak** proposatzen zizkiola. Ramuntxo Etxeberri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enigma bat (6); **enigma hori** (4); **eta enigma** (3); **eta enigmak** (3)

---

enigmatiko *izond* enigma daukana.

Metafisikazko egia horiek modu ilun eta **enigmatikoan** aurkeztu bazaizkio, [...]. Xabier Kintana

Enigmatikoa eta sekretua baita zentzu hori: erdikusten hasten garelarik, ihes egiten digu. Markos Zapiain

Ezekiel profetak ukan zuen Jainkozko Gurdiaren ikuskizunari buruzko ohar **enigmatikoak**. Xabier Kintana

-Noski -erantzun dit, irribarre **enigmatikoaz**. Jon Arretxe

Oso **enigmatikoak** dira, eta interpretazio ezberdinak egiteko aukera ematen dute. Berria - Kultura

Berak ez du aurkitu nahi puntu **enigmatiko** bat, non indibidualak eta sozialak batak bestea ordezkatzen duten. Xabier Arregi

Modu pittin bat **enigmatikoan** erantzungo dizut. Bernardo Atxaga

Gainerakoak haren iragan ilunaren hondo **enigmatikoan** galdurik geratu ziren. Jose Morales

Hau da funtsean ixtoria honetako pertsonai **enigmatikoena**. Herria

Aitor dut Pavel Ivanovitx Txitxikov hori ezin **enigmatikoagoa** dela niretzat -esan zuen Murazovek. Jose Morales

Itsaso beti zahar beti berri **enigmatikora**. Markos Zapiain

Xelebre, paranoiko, maltzur eta **enigmatiko** fama du. Berria - Mundua

---

enigmatikodun *izond* enigmatikokoa.

Sorketa ordenatu baten gaiaren eta natura oparo baten gaiaren artean behin eta betiko eskuratutakoa, murriztezineko sekreturik gabe hedatua lehena, bigarrena, berriz, botere **enigmatikoduna**, historian soseguz hedatzen dena eta ordena espazial guztiak ikaratzen dituena denboraren bultzada handiaren arabera Xabier Arregi

---

enigmatxo *iz adkor* enigma.

Egingo nuke horixe dela, bere garaian argitzerik izan ez nuen **enigmatxoaren** koska bikoitza, oroitzapena nire memorian gorde eta iraunarazi duena. Anjel Lertxundi

---

enigmazale *izond* enigmen zalea dena.

Hainbat jakintsuri (hizkuntzalari eta **enigmazale**) dirua eskaini zien deszifratze-lanak egin zitzaten, eta, haien lanak alferrikakoak zirela ikusten zuen neurrian, gero eta

irrikagarriagoa egiten zitzaion liburuaren sekretua argitzea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hizkuntzalari, doktore, jakintsu, matematikari eta **enigmazale** ugari ibili dira eskuizkribuaren ezkutukoak argitu nahiz azkeneko ehun urte hauetan, eta horiekin batera, saltsero, berritsu, pseudojakile eta parazientzialari ugari. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

enkailatu, enkaila, enkailatzen *(orobat **enkallatu**)* du *ad* hondoa jo.

Esmirna hark hamarren bat urte zeramala han Kaioarrin, marinelek apropos **enkailatu** zutela ur haitzetan, karga eta guzti, ontziaren armadore grekoak burdinazko tramankulu zahar hura mantendu baino nahiago zuelako seguruak ematen zituen diruak kobratu. Joseba Sarrionandia

Hurbiltzen badituk txalupa **enkallatuta** mendian gora abiatuko gaituk. Koldo Izagirre

---

enkajatu, enkaja, enkajatzen *(orobat **enkaxatu**)* **1** du *ad* ahokatu.

Bi zati ditu, bata bestean **enkajatzen** dutenak, punta txiki batekin. Agurtzane Juanena

Pieza guztiek **enkajatzen** zutela jakin omen zuen, baina ondorio horretara berandu iritsi zen segurantzarekin. Joxean Agirre

Habeen erdi-aldera, koska batzuk egiten dira, eta koska horietan katapulten burukoak **enkaxatzen** dira, eta ziriekin finkatzen dira, tentsioaren indarrez ez daitezen mugitu. Santiago Iruretagoiena

2 irud/hed

Pistola enkaskillatu egin zitzaioneko itxura egin zuen, jakina, orain guztiak **enkajatzen** zuen. Harkaitz Cano

---

enkajatze *iz* ahokatzea.

Kontzilio osteko egutegi berritze eta **enkajatze** horretan, ekialdekoekin koadratzeko. Pello Zabala

---

enkaje *iz* parpaila, sare itxurako ehun aski fina eta marrazkiduna.

Banekien, baita ere, **enkaje** eta brodatuak zituztenak hobe nuela ez lixatzea, hondatu egiten zirela-eta. Jasone Osoro

Lurrean, zimur eta kiribildurik prenda arin batzuk ikus zitezkeen: bularretako barroko bat, puntilla eta **enkajeekin**, panty batzuk eta braga beltzak. Joxean Agirre

Enkajezko lentzeria barrokoa zeraman goiz hartan. Patxi Iturritegi

Berdin zitzaion **enkajezko** pikardia beltza janztea edo lepoa lau metroko artilezko bufanda batekin estaltzea. Jasone Osoro

Santa Ana dute zaindari profesio mordoxka batetako lagunek, hala nola jostunek eta **enkaje** edo farfailegileek. Pello Zabala

---

enkajedun *izond* parpailaduna.

Ume-oinetakoak borla gorriarekin, azpiko arropa **enkajeduna**, mahai-zapiak brodatu ukrainardunak, Felipe Juaristi

---

enkallatu ik **enkailatu**.

---

enkantamendu **1** *iz* sorginkeria, xarmadura.

Luthek bi besoak airean zabaldu zituen **enkantamendu** bat egiteko. Joanes Urkixo

Bakea etorri ondoren, xarmari bat, **enkantamendu** bat, egitea pentsatuko dute, Don Kijote herrira itzularazteko. Patxi Ezkiaga

Baina oraingo honetan... -erantsi zuen txakurrari serio-serio begiratuz- **enkantamendu** bat ipiniko diot, eta berriro haginka egiten badiozu hortz guztiak eroriko zaizkizu. Joanes Urkixo

Ez duzu ikusten zeruen haserreak nire **enkantamenduak** baino ahalmen handiagoa duela? Joanes Urkixo

Sekretuz, sorginkeriaz eta **enkantamenduz** betetako liburua aurkeztu du Patxi Zubizarretak. Berria - Kultura

-Luthek zuri egin zizun **enkantamendu** berak hartuta dago -esan zion txakurrari-. Joanes Urkixo

Hurrengoan Dulzinearen **enkantamendua** kontatzen da. Patxi Ezkiaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

«Mundua desenkantatu dugu», idazlearen ustez, eta **enkantamendu** berriak sortzeko idatzi du liburu hau. Berria - Kultura

Burutazio honek adorea eman zion eta, esku ahurrak bere aurpegiaren aldera itzulirik, beste **enkantamendu** babesgarri bat egiten saiatu zen. mundu guztia pilatzen zitzaion inguruan, bai trikimailuak eta baita benetako magiazko **enkantamendu** batzuk ere mirestearren. Joanes Urkixo

3 (hitz elkartuetan)

Alfer-alferrik ari zela konturatu zenean, zutik jarri eta airean **enkantamendu** zeinuak marrazteari ekin zion. Joanes Urkixo

---

enkantatzaile *iz* enkantamenduak egiten dituen pertsona.

Baina hark bost gazte bakarrik hautatu: suge **enkantatzaile** bat, dantzari bat, printze bat, artzain bat eta arotz bat. Patxi Zubizarreta

Aurrena suge **enkantatzailea** hasi zen. Patxi Zubizarreta

---

enkante **1** *iz* jendaurreko salmenta mota, gehien eskaintzen duenari salgaia ematen zaiona; salmenta egiten den tokia.

Egun horretan, erakusketan egon diren obra guztiekin **enkante** bat antolatuko dute. Berria - Kultura

Enkantea ni itzuli aurretik amaituko zen eta horrek nire eragozpenak are handiago bilakatuko zituen. Agustin Otsoa

Txillidaren obra baten **enkantea** bertan behera utzi dute. Berria - Kultura

Zerbitzuok hainbat enpresen artean banatzeko **enkantea** egiteko asmoa du Armadak. Berria - Mundua

Sal-erospen horien **enkanteak** egiten dira parke osoka. Herria

Valeri Solarovek **enkanteari** ekin zionean, Baikalek gutxieneko prezioa proposatu zuen: 6.420 milioi euro. Berria - Ekonomia

Enkante eta piltzar-dendetako saltzaileek esku artean dituzten liburuetako autoreez ohi dutena baino informazio gehiago zeukan Velasco sendagileari buruz. Anjel Lertxundi

Londresko **enkante** batean Yuan dinastiaren portzelanazko pitxar urdin batengatik 22,16 milioi euro ordaindu zituzten. Berria - Kultura

Rembrandt Harmensz van Rijn (1606-1669) Herbehereetako artistaren 55 grabatu salgai jarriko ditu **enkante** batean Londresko Christie's etxeak. Berria - Kultura

Erregistroan ikus daitekeenez, udalak **enkante** batean eskuratu zuen etxea, 2026an. Iban Zaldua

XX. mendea amaitzear zegoela, supermerkatu baten antza zuen honek guztiak, bankuak prezioak beheratzen ari zirela, **enkante** batean bezala, bezeroak harrapatu nahian. Baptistak bultzatutako **enkante** batean zorraren prezioan eskuratua, halako biren balioa izan arren. Pello Salaburu

Estimatuko nuen postaletan jarri ohi den abiaburu arrunt hori, "hemen nago lagun talde batekin etorria", "nire lagun Michelle edo Helenarekin" hobeto, edo **"enkante** batera etorri naiz", beharbada. Ramon Saizarbitoria

Igandean zur eta lur begiratzen zioten elkarri kazetariek, Valeri Siborov **enkanteko** arduradunak hiru mailu kolperen bidez irabazlea jakinarazi zuenean. Berria - Ekonomia

Deitu egin zion, **enkantean** guztien harridura piztu zuen aingira handi bat erakusteko. Karlos Zabala

ik beherago 5. Askoren artean

Hasiera batean Newcastle bazen jokalaria fitxatzeko interes gehien zuena, azken orduan Manchester United ere Rooneyren **enkantean** sartu da. Berria - Kirola

Ekainean *Itzuli-mitzuli* bizikleta martxa burutu ondoren, uztailean artisten obrak **enkanteetan** saldu zituzten. Herria

Ekarri zituzten **enkantera** eta Jusuf Khani gatibuen arteko bat izugarri gustatu zitzaion. Felipe Juaristi

ik beherago 6. Askoren artean

Morrosko sendoek arrautza kaxak, gazta otarreak, gurin saskiak jaso eta **enkantearen** pabiloira zeramatzaten. Karlos Zabala

Ilara batean jarriak zeuden, **enkantearen** barrutia ixten zuten barren kontra. Karlos Zabala

Gero jakin nuen Madrilen oso erraz saltzen zituela -salneurria bikoiztuta- Christie's-eko **enkanteetan** lortutako gauzak. Ramon Saizarbitoria

2 (izenondoekin)

Letra protestaturik zegoen ordurako, betearazi baino ez zuten egin, bahitu eta **enkante** publikoan saldu. Bego Montorio

Enkante publiko bidez egingo da. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enkante-maisu: besteren patrikatik mingainaz ostu duela mailukadaka aldarrikatzen duen gizona. Xabier Olarra

Inoiz **enkante** etxeren batek bildu duen dirutza handiena da iazko hori. Berria - Kultura

Pablo Picassoren (1881-1973) 82 grabatu salgai jarriko ditu Londresko Sotheby's **enkante** etxeak martxoaren 28an. Berria - Kultura

Bilduma erakusgai jarriko dute maiatzaren 14an Londresko Christie's **enkante** etxean, eta bost egun geroago enkantean salduko dituzte agiriak. Berria - Kultura

Ez zuen egundo Londresen antzoki bat kudeatu, eta ez zen egundo **enkante**-etxe baten aholkulari izan Parisen. Oskar Arana

Obrak bihar salduko dira Miarritzeko **enkante** gelan, eta bildutako dirua demoen alde izanen da. Berria - Euskal Herria

Bederatzi **enkante** postuen inguruan birsaltzaileak zebiltzan bueltaka ordurako. Karlos Zabala

Enkante postua bikoitza da; bi aldeetan, bulegoaren aurrean luzatzen den harrizko mahaiaren mutur batean, enkantegile batek otarreak kokatzen zituen eta sortei eta arrain ale handiei salneurriak jartzen zizkien. Karlos Zabala

35.000 aleak berehala saldu ziren, eta dagoeneko Interneteko **enkante** orri batzuetan 45 euro eskatzen ari dira ale baten truke. Berria - Kultura

Otarreak desfilean pasatzen ziren, arraiak, lengoraduak, berdelak, izokinak, hara eta hona ekarri eta eraman egiten zituzten **enkante** sailkatzaileek, haien inguruan areagotuz zihoazen hitz erdizken artean. Karlos Zabala

Goizero Bruselan irudien **enkante** moduko bat izaten da. Txema Ramirez de la Piscina

Inbertsio bankuek enpresaren balorazioa egin eta hasierako akzioen prezioa zehaztu beharrean, Googlek **enkante** bidez banatu nahi ditu akzioak. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Parte-hartze ona elkartasun **enkantean**. Berria - Ekonomia

Milanora iritsi, eta bertan, ostatu-**enkante** istilutsu batean, Rossi tximinia garbitzaileak 82 liberatan erosi dio Giorgio zakarrekoari. Pablo Sastre

5 ***enkantean*** *adlag* enkante baten bidez.

Enkantean egindako salmenta askotan izana zen Ruche jauna, baina, halakoetan, obra serio gutxi batzuk besterik ez zituzten aurkezten. Jon Muñoz

Gainera, **enkantean** jar ditzakezue Jotagarbi 5 horiek, eta museoren batek horiengatik zerbait eskainiko dizuela esango nuke. Iñaki Mendiguren

Senarraren trajea saltzeko zaila da, eta Peterren bizikleta atzera etorri da **enkantetik**, inork ez du erosi nahi izan eta. Josu Zabaleta

Wilderen ondasun guztiak, argitaratutako eta argitaragabeko izkribuak barne, **enkantean** saldu zituzten epaiketako gastuak eta ordaintzeko. Harakinek, mantal zuri handiak jantzirik, zigilu batez okela markatu, garraiatu, pisatu eta barra batzuetatik zintzilik uzten zuten, **enkantean** saltzeko. Antton Olano

Engainazalea engainatu duenari eman bekio ez pena baina sari, ondo baino hobeto egin du Baptistari lapurtuta, horrek herriari lapurtu baino ez du egin eta, nahikoa da erreparatzea etxeak bahituta eta **enkantean** salduta ikusi dituzten koitadu horiei, inoiz bukatzen ez ziren interesak zituzten zorrak zirela medio. Bego Montorio

6 ***enkantera*** *adlag* enkantean.

Enkantera saldutako gauzen zerrendan. Patziku Perurena

Bestetik, Jukos petrolio taldearen Jugansknefteg filiala **enkantera** aterako du Errusiako Gobernuak. Berria - Ekonomia

Proposatu nuen sal geniezaiola zuzen-zuzenean hiriko liburutegiren bati, Berg Collection-i, Morgan-i, Columbia Unibertsitateari, edo bestela atera genezala **enkantera** Sotheby-ren bitartez. Oskar Arana

Enkantera aterako diren objektuetako askoren balioa ez da ekonomikoa, sentimentala baizik. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat enkantean (4); **bat enkantean jarriko** (3); **christie s enkante** (6); **ditu enkantean** (4); **dituzte enkantean** (3); **enkante batean** (14); **enkante etxeak** (5); **enkante etxean** (7); **enkantean aterako** (4); **enkantean jarri** (4); **enkantean jarriko** (16); **enkantean jarriko dituzte** (3); **enkantean jarriko dute** (4); **enkantean saldu** (3); **enkantean salduko** (3); **enkantean saltzeko** (5); **enkantean saltzen** (3); **enkantean sartzeko** (3); **enkantera aterako** (3); **eta enkantean** (3); **jarriko ditu enkantean** (3); **s enkante** (10); **s enkante etxeak** (5); **s enkante etxean** (5); **sotheby s enkante** (4)

---

enkantegile *iz* enkantea egiten duen pertsona.

Enkante postua bikoitza da; bi aldeetan, bulegoaren aurrean luzatzen den harrizko mahaiaren mutur batean, **enkantegile** batek otarreak kokatzen zituen eta sortei eta arrain ale handiei salneurriak jartzen zizkien; koadernoaren emakume idazlaria, bitartean, esleipenaren zain zegoen **enkantegilearen** gainetik, idazluma hatzetan. Karlos Zabala

Enkantegile konkordunak, beroturik, haizea astintzen zuen bere beso argalekin, masailezurrak aurreratzen. Karlos Zabala

Azokako **enkantegilerik** onena da. Karlos Zabala

Logre ez zen lasaitzen, Florentek arrain **enkantegile** bikaina antzematen zuen berriz ere harengan, masailezurra aurrera, hitzak eskuekin hara eta hona botaka, giharrak uzkurturik zaunkaz. Karlos Zabala

---

enkaputxatuta *adlag* kaputxa jantzita.

Irudietan hiri bateko kale bat, eta polizia pila bat ezkaratz baten aurrean, ataria zaintzen, **enkaputxatuta** eta eskopeta motzak eskuetan. Unai Iturriaga

Arkautitik irten nintzenean, esan zidaten bazekitela salatu egingo nituela, baina ez zitzaiela axola, eta horregatik eduki nindutela gainera **enkaputxatuta**. Jokin Urain

---

enkaratu, enkara, enkaratzen du *ad* aurre egin.

Hartaratu gabe, hemendik eta oraintxe, bota dezaket diagnostikoa: ordutegi eta leku fijorik gabeko eztabaida eta espantokeria horiek erran nahi dute alardea zaharkitu egin

zaizuela, hori da, ez negar egin, **enkaratu** egia. Patziku Perurena

---

enkargatu, enkarga, enkargatzen **1** du *ad* lan bat edo zeregin bat gauzateko eskatu edo agindu. ik**kargutu**.

Irujok beste ekintza bat **enkargatu** ziola, nahitaez egin beharrekoa. Inazio Mujika Iraola

-Ikerketa bat **enkargatzen** bada, gero hori plazaratzeko izaten duk beti. Xabier Mendiguren Elizegi

Ia guztiz hondaturik erosi zuen eta Rafael jaunari **enkargatu** zion konponketa, fabrikatik atera berria balitz bezala utz zezan. Bego Montorio

Niri eta lanbide hartako beste batzuei, eginkizun berezi bat **enkargatu** behar zigula. Matías Múgica

1986an **enkargatu** zion museoak obra Serrari, eta urte horretan bertan erakutsi zuen Txillidaren, Tapiesen eta Baselitzen obrekin batera. Berria - Kultura

Herriko etxe guztietako suak itzali, eta haritz ezpalak bata bestearen kontra igurtziz eta gorituz su berria lortzen zuten, eta lan horretarako **enkargatua** druida izan ohi zen. Pello Zabala

Ahaztuko zuela, agian, urtean behin behintzat [...] osabaren betiereko atsedenaren aldeko meza esan zezaten **enkargatzea**. Bego Montorio

Goizean kantari jaiki eta erosketa **enkargatzera** joaten zen; gero tranbia hartzen zuen, 7a. Fernando Rey

Enkargatuko zela bera, enteratuko zela nola edo hala nor zebilen haren atzetik. Xabier Mendiguren Elizegi

Oso ohikoa da horrelako lanak hasi baino lehen mota guztietako txosten teknikoak **enkargatu** eta egitea. Edurne Elizondo

Eusko Jaurlaritzak **enkargatu** du proiektua egitea parkea datozen urteetan gauzatu ahal izan dadin. Berria - Euskal Herria

Hemen, Arantzazuko Seminarioa martxan ipini berria zenean, bertako obraren kapatazgo modukoa **enkargatu** zioten. Pello Zabala

Poetarik ez letraturik ez baduzue, **enkargatu** libretoa Luis Mari Mujikari. Patziku Perurena

Bigarren Mundu Gerraren sorrera eta bilakaera ondo segitu ez zuenez, horri buruz idatzitako guztia **enkargatzen** hasi zen Lisboara. Bego Montorio

2 salerosle, dendari edo kideko bati gauza bat eskura diezaion eskatu.

Kontua da uko egin ziola beste traje bat **enkargatzeari**. Bego Montorio

Berendiaren beraren telefonotik **enkargatzen** zituzten otorduak Hotel Torrontegira. Koldo Izagirre

Eguberriak zirela profitatuz, iloba gonbidatu zuen espresuki **enkargatutako** indioilarrez hornitutako jaieguneko afarira. Bego Montorio

Mahaia **enkargatu** diot. Bernardo Atxaga

Presa-presaka bostehun txartel **enkargatu** nituen nire izen mailegatuarekin. Matías Múgica

Osaba hark **enkargatutako** zapatak eramatera bidaltzen ninduen. Pello Lizarralde

Inkonpetente hutsa da ohol biko zerraldo hau **enkargatu** duen ergela! Harkaitz Cano

Ostilamendua **enkargatu** behar dut. Juan Garzia

3 norbaiten edo zerbaiten kargu egin.

Arratsaldean prozesioa alde guztietan eta beldurrik latzena piztu eta sartuko zuen sermoilari onena **enkargatu**. Pello Zabala

4 (era burutua izenondo gisa) arduraduna.

Biltokiko **enkargatuetako** bat zen eta hainbat langile zituen bere menera, fardelak hara eta hona eramateko. Joan Mari Irigoien

Izarretatik izarretara, **enkargatuaren** begiradapean, garia edo erremolatxa biltzen, ehunetik gora lagun lerro-lerro aritzen ziren. Pablo Sastre

Enkargatua etortzen zenean, galdetuz gero, komunean edo zerbaiten bila joana nintzela erantzuten zion aitak. Jon Maia

-Horiek hemen ingurutako bi fabrika handienetako **enkargatuak** dira. Jon Maia

Jaka urdineko **enkargatuari** aurrea hartuta. Jon Maia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bat enkargatu (4); **enkargatu zion** (8); **enkargatu zioten** (3)

---

enkargu **1** *iz* mandatua; agindua.

Emango al diozu **enkargua**? Jasone Osoro

Requiem bat idazteko **enkargua** egiten zion igorle ezezagun batek. Imanol Zurutuza

Enkarguak egiten zituen mutikoak buru makur segitzen zuen, eta jaiki zenean, negarrez ari zen. Pedro Alberdi

Ez, amarenean **enkargu** bat egin behar nuen, eta ahaztuta neukan. Paddy Rekalde

Enkargu asko hartzen diat eta denak egiten ditiat. Koldo Izagirre

Azken asteotan iragarritako **enkargurik** ez da oraindik iritsi. Berria - Ekonomia

Arkitektoak obra publiko bat egiteko **enkargua** hartzen duenean, gastuen zenbatespena egingo du obra zenbat kostatuko den esanez. Santiago Iruretagoiena

Hargina itzultzen ez zenez, monjeek atea eraikitzeko **enkargua** beste norbaiti eman behar zitzaiola erabaki eta handik gertu bizi zen jentil batengana jo zuten. Martin Anso

Enkargua jaso zuen tipo hori ez zen, jakina, tipo arrunta: pintore famatua zen. Unai Elorriaga

Albistea, edo hobeto esanda **enkargua**, edo agindua, jaso nuenean, ez nintzen sobera kezkatu. Bernardo Atxaga

Enkargu horixe utzi ziola alde egin aurretik. Inazio Mujika Iraola

Hirurok elkartu ginenean Kristinak esan zigunan **enkarguren** batera joan behar zuela eta bakarrik geratu gintunan biok. Xabier Mendiguren Elizegi

Atso zaharra kalean dabil, **enkarguetara** irtenda. Iñaki Segurola

Nekane, bidal nazazu umetan bezala **enkarguetara**, nik atseginez lagunduko dizut-eta! Joan Mari Irigoien

Jesiko Kreszentzio Ministro jeneralak San Frantziskoren Bigarren Bizitza idazteko **enkargua** eman zion. Askoren artean

Nik neure **enkargua** bete eta neure dirua kobratu, horraino nire zeregina. Sonia Gonzalez

Napumoceno jaunak **enkargu** bat zekarren, osaba batek Gilberto Sousa doktorearentzat, S.Vicenteko jende printzipala eta haren antzinako ikaskidea, bidaltzen zuen bonbardeira egurrezko pipa. Bego Montorio

Ez du burdinak gaiztotu behar; urrezko igitaitxoa zerabilten druidek eurek, mihura ebakitzeko **enkargua** zutenek. Pello Zabala

"Zergatik ez haiz Sansonen putzuan azaldu? Utzi nian etortzeko **enkargua** hotelean", esan zion Adrianek beragana eginez. Bernardo Atxaga

Erretorearen **enkargu** bat daukat zuretzat -esan zidan-. Bernardo Atxaga

Oroitzen dut nola aitak lehenengo **enkarguan** manatu zion pinta zezala Errege magoen adorazionea, froga gisa edo. Joan Mari Irigoien

Egun hartan, Frantziatik zetozen lau bidaiari hartu nituen Irunen Bitoriara eramateko **enkarguarekin**. Bernardo Atxaga

Propio egiten zizkion, **enkarguz**, Veneziako bitxigile batek, behin enkante batean berak erositako ontzi zahar bat eredu. Matías Múgica

Edo Prokofievek, honek ere Paul Wittgenstein mainguaren **enkarguz**, idatzi zuen piano-kontzertu harekin. Harkaitz Cano

Bera ere urduri zegoen **enkarguetako** mutikoak ekarritako albistearekin. Pedro Alberdi

Egia esan nion, **enkarguzko** liburuak idazten nituela batez ere. Ramon Saizarbitoria

Horman, margolan handi bat, **enkarguzko** egiten diren zahar itxurako kopia horietakoa, nonbait. Javi Cillero

Erabat desberdinak dira beste marrazkien aldean -**enkarguzkoen** aldean, alegia-, barne-biziaren eta amets eta premien adierazpen baitira. Xabier Olarra

Ontziola txiki eta ertainek goraino bete dute **enkarguen** zorroa. Berria - Harian

Enkarguak ugariak ziren boladetan, osagarrizko ontziak mobilizatu behar ziren. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eraikuntzarako ezgai, baina erretirorik gabe, **enkargu** txikiekin jarraitu behar izan zuen. Alberto Barandiaren

Enkargu gogaikarri bat zeukan herrirako; bizpahiru gutun idatzi, kapela janztera igo, eta hamar minuturen buruan prest izango zen. Anton Garikano

Idazlea aspaldian aspertuxea dago bulegoetatik datozkion **enkargu** hotz eta lehorrak erantzuten. Pako Aristi

Batzuetan **enkargu** oso jakinekin egin behar izan duelako lan. Berria - Kultura

Buruzagi horri erantzukizun handiko **enkarguak** emango dizkiote. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Enkargu andana jasotzen zuen, Erresuma Batuko bildumagileek izugarri estimatzen zuten harne lana. Berria - Kultura

Edo, beharbada, agintarien presio berbera, **enkargu**-egileari amore emateko gogo erabatekoa. Bernardo Atxaga

Azken finean erronka polita iruditzen zait pelikula bat **enkargu** moduan egiten. Berria - Kultura

· 1989ko udazkenean, Stephenentzat marrazki-**enkarguak** lortzen hasi zen Margaret, eta asteburuero ateratzen zuen marraztera. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egiteko enkargua (5); **enkargu asko** (4); **enkargu bat** (10); **enkargu bat egin** (3); **enkargu batzuk** (3); **enkargua bete** (3); **enkargua egin** (4); **enkargua egiten** (3); **enkargua eman** (6); **enkargua jaso** (3); **enkarguak egiten** (6); **enkarguren bat** (7); **enkarguz egin** (4); **enkarguzko lanak** (5); **eta enkarguzko** (3); **idazteko enkargua** (4); **zion enkargua** (3)

---

enkargutxo *iz adkor* enkargua.

Pipa ahotik kendu, eta ezetz, **enkargutxo** bat ematera etorri dela soilik. Anjel Lertxundi

Umberto **enkargutxoren** bat egitera irtena izango zela pentsaturik, moila aldera abiatu nintzen denbora egiteko. Anjel Lertxundi

---

enkarnatu *izond* haragi-kolorea.

Begiak betetzen zituen gorri-**enkarnatuz**, berde distirantez eta bereziki Persian bakarrik atxeman daitezkeen urdin sakonez. Aurelia Arkotxa

---

enkartelada *iz* kartelak jartzea.

Pilotalekuko atarian pilotari talde bat **enkartelada** egiten ari da. Berria - Kirola

Sinadura bilketak, hamabi manifestazio, **enkarteladak**... denetarik egin zuten, zentral termikoa herrian ez eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

Iragan astelehenean, gudari eguna zela-eta, **enkartelada** egin zuten Alcala Mecon preso dauden emakumeek. Berria - Euskal Herria

Enkartelada, gose greba eta planto ugari egin dituzte egunotan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enkartelada egin (3)

---

enkartelatze *iz* kartelak jartzea.

Aranjuezen joan den asteburuan eta aurrekoan **enkartelatzeak** egin dituzte; Badajozen, aldiz, baraualdiak egin dituzte. Berria - Euskal Herria

---

enkas *adlag* **1** badaezpada ere, zer gerta ere.

Ba, hobe diat berehala prestatzea, **enkas**. Filipe Bidart

Muga pasa artean, eta **enkas** (seguru aski ez baita ezer gertatuko), Don Jaimeren ondotik ongi iritsi dela segurtatu eta abisatzea nahi diat. Txillardegi

Beldurra bazterretan, eta kargudun politikorik gehien-gehienak, diru mordoxka bat **enkas** sakelara; eta, Garaikoetxea lehendakaria bera bezala, hona edo hara ezkutaleku bila abiaturik. Txillardegi

2 ***enkas ere***

Gaizo Julia! Dirudianez egin nahi zuen zerbait eta diotenez Eliseoko jauregian bazakiten eta utzi dute egitera, **enkas** ere... Herria

---

enkaskillatu, enkaskilla, enkaskillatzen du *ad* su arma bat buxatu tiro egitean balaren kaskiloaz.

Enkaskillatu egin zaidan pistola. Harkaitz Cano

Pistola **enkaskillatu** egin zitzaioneko itxura egin zuen, jakina, orain guztiak enkajatzen zuen. Harkaitz Cano

Oraingoan ez zitzaion **enkaskillatu**. Harkaitz Cano

---

enkaxatu ik **enkajatu**.

---

enkistatu, enkista, enkistatzen da *ad* arazo edo egoera zail eta desegoki bat iraunkortu.

Denborak ez du deus sendatzen baina sufrikarioa eztitzen du, **enkistatu** eta inoiz itxi ahal izango ez den zauriaren lekukoa izango baita beti. Joxan Elosegi

EBBko buruari «egoera antidemokratiko bat indartzea eta **enkistatzea** ahalbidetzen duen jendarme politikoa» izatea leporatu zion. Berria - Euskal Herria

Pekineko Langileen estadioa lepo beteko da etxeko futbol selekzioak, arerioari, Japoniari alegia, urteetan **enkistaturiko** zorrak ordainarazteko. Berria - Kirola

---

enklabe *iz* lurralde edo giza taldea, bestelako ezaugarri politiko, administratibo edo erlijiosoak dituen beste baten barnean kokaturik dagoena.

Iberiar penintsulan, bestalde, eremu musulmana Granada inguruko **enklabe** soil batera murriztua zegoen. Iñaki Mendiguren

Horrezaz gain, hiru txosten egitea proposatu dio batzorde bereziari: **enklabearen** eta EAEren arteko loturei buruzkoa; **enklabea** Gaztela Leondik bereizi eta Araban sartzearen inguruko azterketa juridikoa; eta **enklabearen** iraunkortasunak Trebiñuko, Arabako eta EAEko herritarrentzat zerbitzuen eskaintzan duen eraginari buruzkoa. Berria - Harian

Zisjordaniaren erdia baino gehiago bereganatu nahi du eta palestinarrak **enklabeetan** preso jarri. Berria - Mundua

Harresiaren lehenengo zatia, Zisjordania eta Israel artetik igarotzen da, baina palestinako lur eremuaren barnetik, eta 22 **enklabe** sortzen ditu. Berria - Mundua

---

enklisi *iz* gramatika gertakaria, ezkerretara duen hitzari forma azentugabea bat erantsean datzana.

Horregatik proklisia eta **enklisia** hotsek elkarri eragitea errazten duten egoerak izan ohi dira. Lourdes Oñederra

---

enkoadernatu, enkoaderna, enkoadernatzen du *ad* koadernatu.

Fotokopia bat egin, biak **enkoadernatu** eta, bat etxean utzita, Udaletxera eraman nuen bestea, Jontxu Muñagorrirengana. Xabier Mendiguren Elizegi

Larruaz **enkoadernaturiko** arrabeteko liburuki batekin agertu zen. Jon Alonso

Seda horiz **enkoadernaturiko** ale eskuizkribatu batzuk ezagutu nituen, Dinastia Argitsuko Hirugarren Enperadoreak zuzendu zuen eta sekula inprentara eman ez zen Entziklopedia Galdua delakoarenak. Juan Garzia

---

enkoadernatze *(corpusean **enkuadernatze** soilik)* *iz* koadernatzea.

Estilo filosofikoa aipatzen dugunean, jakina, ez gara ari, apaingarriez (marrazki, apaindura, **enkuadernatze** eta abarrez), filosofia egiteko modurik egokienaz baizik. Askoren artean

---

enkoadraketa *iz* enkoadratzea.

Irudia (plano motak, **enkoadraketa**, efektuak, muntaiak...); soinua (ahotsak, musika, efektua...); eta hausnarketa sustatu nahi du (gustura ikusi duten edo ez, zer ulertu den, zer mezu...). Berria - Euskal Herria

---

enkoadratu, enkoadra, enkoadratzen *(orobat **enkuadratu**)* du *ad* marko batez inguratu; kameraren objektiboak hartzen duen espazio zatian sartu.

Gorrotatu egiten ditut beren laineza eta hantusteak, exhibitzeko, **enkoadratuak** izateko, fokoen pean jartzeko duten premia hori. Joxean Agirre

Haren haragi atseden hartua, haren aurpegi arrosa sekula ez ziren agertu haren adats lau-lauan hobeto **enkoadraturik**. Karlos Zabala

10x15 cm-ko argazki matea zen, ondo **enkoadratua**. Fernando Morillo

Haiek ere ongi **enkoadratuak** zeuden, eta lehenagoko soldadu berak ikusten ziren lasterketa geroz eta biziago batean, geroz eta gertuago kameraren objektibotik. Josetxo Azkona

Bestetik, irudiak grabatzerakoan **enkoadratzea**, plano motak, muntaketa eta trikimailuak erakusten ditu, adibide grafikoekin. Berria - Harian

Beste argazki bat egin nuen xiringak ere **enkuadratuz**. Koldo Izagirre

---

enkoadratze *(corpusean **enkuadratze** soilik)* *iz* marko batez inguratzea; kameraren objektiboak hartzen duen espazio zatian sartzea.

Enkuadratze finkoa darabil, oso landua; aldi berean, enkuadre barruan gertatzen dena oso jariakorra da. Berria - Kultura

enko *(orobat **enkuadre**)* *iz* enkoadratzea; kameraren objektiboak hartzen duen espazio zatia.

Orduan bakarrik jarraitzen ditugu antzezleak leku horretatik, **enkuadrerik** politenak lortu arte. Berria - Kultura

Ez nire kamerariak, ez nik ez dakigu zer gertatuko den azkenean **enkuadre** barruan. Berria - Kultura

Enkoadretik kanpo. Berria - Kultura

Zaila da Estatu Batuetan argazki bat egitea, **enkuadrean** poliziarik harrapatu gabe. Joxerra Garzia

---

enkofradore *iz* enkofratzen duen pertsona. ik **enkofratzaile**.

Ofizioko **enkofradoreak** ematen duzue esan zien kamioizaleak. Berria - Kultura

Lasarte-Oriako enpresa batean **enkofradore** lanak egin zituen. Berria - Euskal Herria

---

enkofradu *iz* hormigoiari, gogortzen den arte, forma emateko erabiltzen den oholezko edo xaflazko moldea.

Eta giderrik gabeko koilara xume batekin zuloginean jarduteko kemena ukanik ere, edukiko ote nuke talenturik, **enkofradu** bat behar bezala egiteko? Koldo Izagirre

---

enkofratu, enkofra, enkofratzen **1** du *ad* hormigoia hustu behar den enkofradua prestatu.

Enkofratzeko oholak, isolatzeko plantxak. Pablo Sastre

2 enkofratzea.

Enkofratu lanak egiten ari zen behargina, eta, ez jakin nola, bi metro eta erdiko garaieratik erori zen. Berria - Ekonomia

---

enkofratzaile *izond/iz* enkofratzen duen pertsona. ik **enkofradore**.

Urteetan **enkofratzaile** jardun du lanean, eta gertutik ezagutu ditu bere jendearen arazoak. Berria - Euskal Herria

---

enkomienda *iz* nagusi baten jurisdikzioari zegokion barrutia.

Euskal forman ezarri ditut hitzak kaierean: "Bargota, antzinako herria, non XII. mendean Bargotako **Enkomiendako** Ospitale Sanjuandarra zegoen. Piarres Aintziart

---

enkoniadura *iz* enkoniatzea; enkoniatzearen ondorioa.

Enkoniadura ezinago handi bat sortuko zaio, ondorioz. Berria - Kultura

enkoniatu, enkonia, enkoniatzen **1** da *ad* erabat haserretu.

Bertze alderat so egin zuen, adierazten zidalarik, halatan, ezen haserreturik eta **enkoniaturik** zegoela enekin, gonbidatu guztiak bezperan kakalarrian jarri nituelako, eta ez zidala huts hura barkatzen. Joan Mari Irigoien

Azkenean bere hitz edo erran bakar hark ene argumentu guztiek baino gehiago balio izaiten baitzuen, nihaur haserretzen, jauzten eta **enkoniatzen** nintzelako. Joan Mari Irigoien

Etsai ozpinduak balira bezala, nor bere muturrean, urrats bat bera ere gibelatu gabe, batek antsiarik ez zuenaz antsiatzen eta **enkoniatzen** zelarik bertzea. Joan Mari Irigoien

2 (era burutua izenondo gisa)

Arima **enkoniatuak**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

enkontrarazi, enkontraraz, enkontrarazten du *ad* aurkitzera behartu.

Benedikatzen dut fortuna, zu **enkontrarazi** nauena. Aurelia Arkotxa

---

enkontru **1** *iz* topo egitea.

Printzearen eta printzesaren **enkontrua**. Patxi Zubizarreta

Nekanerekin izan duen **enkontruak** zabaldu dizkio leihoak Margaren memoriari. Iban Zaldua

Handik gutxira gertatu zen Etxebarrietaren eta Sarasketaren **enkontrua** Pardines guardia zibilarekin. Joseba Zulaika

Bera bakarrik al zen bada haiekin **enkontru** bat izan zuena? Unai Iturriaga

Han zen biharamunean, **enkontru** horietarako adostuta genuen kafetegian. Iban Zaldua

Pertsonaia hausnartzen ari da zenbat pultsio erotikoren **enkontrua** eta emaitza ote den hiri bat, eta, hiri guztien gainetik, Venezia. Anjel Lertxundi

Galietako Guda latinetik gaztelaniara itzultzen ari naizela, gomuta bete-betea daukat bi egitura desberdinen arteko joan-etorri, harreman, bihurgune, labar, **enkontru** eta urrutiramenduez. Anjel Lertxundi

Bizkor hitz egiten zuen, **enkontruak** pozez bete izan balu bezala. Iban Zaldua

Arrats batez, Armeniako printze bihoztoi bat [...] arribatu zen gaztelura eta atera zitzaion **enkontrura** damaren mutila. Aurelia Arkotxa

Burdinarri baten eremu magnetikoan sartu balira bezala, nire ezpainak ere aitzina abiarazi nituen, bertze horien **enkontrura**, gizotso dudatsu eta arroztua, hurrupatzeko nahiz hurrupatua izateko prest. Aingeru Epaltza

Donostiatik Beasainera zetorren Txabi, eta Eibarretik nindoan haren **enkontrura**, dinamita karga bat kotxean neramala. Berria - Euskal Herria

Batzuetan Tatamarirekin joaten da amaren **enkontrura**, Mariaren karrikotxeari helduta. Jokin Muñoz

Hatz erakuslearekin kurritu nuen pianoaren tekla bakoitza, lagun zaharren **enkontrura** aspaldiko partez datorrenak bezala, nota bakoitzaren arintasuna eta pisua, zaporea eta bolumena, biribiltasuna edo zorroztasuna neurtuz. Harkaitz Cano

Arantxa ni baino lehenago heldu zen hara: seinale ontzat hartu nuen, nahiz eta, egia osoa esateko, ni beti berandu iristen naizen **enkontruetara**. Iban Zaldua

Jaiki eta hurbildu egin zitzaion lehen **enkontruko** hoztasunaren kontrako konfiantza eman guran. Josu Landa

Nahiago zuen Anaz gehiago ez pentsatu; arazo nekosoetara zeraman horrek, are larriago sentiaraziko zuen, aurreko larunbat gauean izandako **enkontrukoak** berritzen hasiko zen, eta atzera berriro morokil guztiari bueltaka. Iñaki Iñurrieta

Eta ehiztari guztienak bezala, bereak ere bidera irtendako animalien **enkontruz** beterik daude, arrastoa jarraitu eta itsumustuan eraso egindako piztien begiradez oroimenean itsatsirik. Pako Aristi

Anaiari ordea -halaxe esan zion Corgean izeneko doktore batek- inpresioa handia egin zion **enkontruak** -*the incident left a strong impression on him*-, eta gau hartan bertan alde egin zuen ospitaletik bere burua laku bateko ur hotzetara botatzeko. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Literaturak Venezian kokatu dituen istorio erotikoek, inauteriek eta inauterietako mozorroek, kale estuetako **enkontru** klandestinoek. Anjel Lertxundi

Heriotzarekiko **enkontru** labur honetatik ikaskizunik ateratzekotan, honako hau izango zen: nire bizitza, hitzaren zentzurik hertsienean, ez zen jada nirea. Oskar Arana

Enkontru gaiztoren bat bart ni "Lisboan" utzita, ala Eskalatzailearekin mutur-joka aritu haiz? Aingeru Epaltza

Autoan gindoazela suertatu zen lehen **enkontru** bortitza zetazko gizonarekin. Lander Garro

Mikel bere buruarekin **enkontru** serio bat izaten ari zen, gailurra deitzen zaion horietakoa, *Meeting Appoint*. Unai Iturriaga

Maiz amets egin zenuen une honekin, maiz imajinatu zenuen lehenengo **enkontrua**, lehenengo solasaldia, lehenengo besarkada, baina batez ere, lehenengo azalpena eta lehenengo barkamena. Eider Rodriguez

Ez dirudi ohiko **enkontru** bat, baina errepikatuko balitz komeniko litzateke, agian, emakumearen inguruko informazioa jasotzea. Iban Zaldua

Nik ez nuen ikusi, atzetik egin baitzidaten eraso, gauez, neskalagunarekin izandako ezkutuko **enkontru** batetik pentsiorako bidean nindoala. Iban Zaldua

Alde batera uzten ditu, jakina, noizbehinkako **enkontruak**, batarekin edo bestearekin Ondo gogoratzen dut urtea, gure azkeneko **enkontruan** gaztelaniaz argitaratu berria zen Alessandro Bariccoren *Zeta* eleberria gomendatu zidalako. Iban Zaldua

-Egingo al dugu dardotan? -galdetu zion azkenean, lehen **enkontru** hartako izotza hausteko asmoz-edo. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Aspaldian elkartu ez diren ikaskide zaharren arteko **enkontru** erritoak errepikatu ditugu, bat bera ere ahaztu gabe. Iban Zaldua

· Lino aske geratu eta gutxira, sexu **enkontru** bat-bateko eta lasaigarrien bila hiriburura joan ohi zen anbienteko taberna haietako bateko gela ilunean, Lino bereizi uste izan zuen komisarioak, begitazio hori izan zuen. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **enkontru bat** (4); **enkontru hark** (3); **enkontrua eta** (3); **lehen enkontru** (5)

---

enkorrio *iz* **

Ez zuen inorentzat hitz txarrik edo **enkorriorik**. Gotzon Garate

---

enkostika *iz* argizari geruza.

Entzuten ziren lehenik eztula eta gero korridorrean **enkostikak** dirditatu taula zaharren pleinuak. Piarres Aintziart

---

enkre *iz* tinta.

Paper faltsu baten zuritasunean **enkre** iluna buhaka idorrarazi eta segitu zuen. Itxaro Borda

Eskaintzak ezeztatzen zituztenen izenak **enkre** gorriz seinalatuko ziren. Itxaro Borda

Imajinatzea, ez dudala gehiago haren eskuz eta **enkre** urdinez izkiriatu gutunik erdietsiko. Berria - Kultura

---

enkriptatu *izond* klabe ezkutu batez kodetua.

Horien barnean arakatzen nuen, hizkuntza **enkriptatu** gaixoaren barneko mami guztia nire egiten, bere buruaren topografia barneratzen. Lander Garro

Munduaz hainbeste jakinda ere, gauza izango da biharko irakurlea, diot, eta Irlandatik ateratzeke, honelako azpititulu **enkriptatuak** ulertzeko? Iñigo Aranbarri

---

enkuadernatze ik **enkoadernatze**.

---

enkuadratu ik **enkoadratu**.

---

enkuadratze ik **enkoadratze**.

---

enkuadre ik **enkoadre**.

---

enkuesta ik **inkesta**.

---

enlatatu **1** *izond* lata batean sartua. • *irud/hed*

Arrastorik ez normaltasunaz, edo egungo egoeraren gainean berak nahi zuen ikuspegi **enlatatuaz**. Alberto Barandiaren

2 irrati edo telebista saioez mintzatuz, emititu aurretik grabatu dena.

Inoiz ez ditu albistegiak atsegin izan, eta are gutxiago ulertzen du orduero alde handirik gabeko berriez osatutako albiste sail **enlatatuak** errepikatu beharraren ekandua. Pako Aristi

---

enlaze *iz* gerra eta kidekoetan, atzeragoardia eta abangoardiaren arteko komunikazio lotura egiten duen pertsona.

Ni **enlaze** izan ninduan Kandido Sasetaren agindupean, eta etsaiaren lerroak pasa behar izan nituen ehun eta gehiagotan, ez ninduten inoiz bizirik harrapatu. Koldo Izagirre

Beti daude prest mendira jotzeko eta ez dute akordutik galtzen behin zapalduriko bidezidorra, are gutxiago Kirikiño batalloiko **enlaze** izandako batek. Koldo Izagirre

Gaztetu zen gure Metxa, gerratean **enlaze** ibili zeneko lan berdina eskatzen zion-eta orain ilobak. Pablo Sastre

- **Enlaze** ederra, mezuak irakurtzen dituena! Koldo Izagirre

Agirre'tar Nikola Metxa ere -Koldo Izagirrek sortutako pertsonaia suhar, herren eta erretxina- han ibilia izango zela oroitu nuen, **enlaze** lanetan jo batera eta jo bestera. Juan Luis Zabala

---

enmarkatu, enmarka, enmarkatzen du *ad* marko batez inguratu.

Hormetako koadroei erreparatzen diet orduan, erreprodukzioak dira, baina ongi **enmarkatuta**. Mikel Hernandez Abaitua

2 marko moduko batez inguratu.

Galdu den behialako margoaren arrastoa; balkoiak **enmarkatzen** zituen mosaikoen irudia; harlauzak, batzuk hautsita edo altxatuta. Alberto Barandiaren

Kobre metalez **enmarkaturiko** edertasuna, bekain beltz joriek bi zeru galernatsu babesten dituzte, eta beherago marrubi bat. Eider Rodriguez

Tolosaraino igo behar da, Okzitaniako Tolosaraino, eta gero jaitsi berriro, herrixketako izenak bi hizkuntzatan daude jarrita, Saint-Sulpice/Sent Somplesi, marra gorri batekin **enmarkatuta** Ipar Euskal Herrian bezala. Mikel Hernandez Abaitua

Biraka, lepo-zerrendak aurpegia **enmarkatzen** diola, mantalaren lokarriek gerria besarkatzen diotela, egarriz dagoela dio. Anton Garikano

---

enmendakin ik **emendakin**.

---

enmendatu, enmenda, enmendatzen du *ad* emendakina ekin.

Herenegun amaitu zen legezko proposamena **enmendatzeko** epea, eta Eusko Legebiltzarreko talde guztiek baliatu dute proposamenak aurkezteko aukera. Berria - Euskal Herria

---

enoagarri *izond* aspergarria, nardagarria.

Eta gerora baino ez zitzaion sartu neurtitzak ontzeko grina **enoagarria**. Juan Garzia

Erosoago sentitu nintzen alderdi profesionaletara lerratzean, eremu itxuraz biendako **enoagarriak** utzita. Aingeru Epaltza

Hango filmak eskuarki guretzat nahiko **enoagarri** izaten dira. Gotzon Garate

Enoagarri zen niretzat, uneoro nahi izaten nuen nik orduan, eta lurrin-dendan ase behar izaten nuen nahitaez. Joxan Elosegi

---

enoatu, **enoa, enoatzen** da *ad ipar* aspertu, nardatu, unatu.

Ohartu dira eskolan, bai lehen mailean eta bai bigarrenean, haurrak **enoatzen** direla. Herria

Nor **enoatuko** edo aspertuko ote zen, eta, are gutiago, nor lokartuko Lafitte jaunak argitzen eta oraikotzen zituen esplikazioneen erdian! Herria

Haatik ez da nehor **enoatu** : partida bizi-bizia joan da. Herria

Nehor ez zitekeen **enoatu** edo aspertu hari beha. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

RPIMA-ko ehundaka militarren mantentzeko, denek zergak pagatzen ditugu ehundaka CRS eta "gardes mobiles" delakoak beren Marracq-eko eta Butte aux Cailles-eko

kasernetan **enoa** daitezen. Herria

Elizkizunetarik landa Agerreko ostatuan iragan da gaineratikoa, ez baita nehor **enoatu**. Herria

Ez dela **enoatzekorik** izanen igandean, Aiherran! Herria

Ekainaren 17 an, goizeko 11 ak 30 etarik aitzina, hurbilduko denak ez du **enoatzekorik** izanen. Herria

Leihatilako sarean egin ziminokeriek ene gorputza iratzarri dute eta, joan-jinka aritzeaz **enoatzen** hasten bainaiz, beste soinketa batzuk asmatzen ditut. Filipe Bidart

Gerora, baina, munduaz **enoaturik**, Arantzazura itzuli nintzen, non seme bati egiten zaion bezalako harrera egin baitzidaten. Jon Alonso

---

enologia *iz* ardoa egiteko eta kontserbatzeko zientzia eta teknika.

Irakasgaien artean **Enologia** eta Ardoen Geografia egongo dira. Izan ere, eta tulipanen kasuan argi ikusi denez, edozein gairekin eta edozein alorretan espekulatu daiteke, futbolean bezala **enologian** eta arte ederretan. Berria - Gaiak

EVENAk, Nafarroako **Enologia** eta Mahastizaintza Erakundeak, kalkulatu du jatorri izenak gutxienez aurreko urtean baino %20 mahats gutxiago bilduko duela. Berria - Harian

Bestalde, **enologiaren** joera berriak izan zituen mintzagai Joxe Angel Goñik. Berria - Euskal Herria

---

enologo *iz* enologian aditua den pertsona.

Horra hor, bai, markako ardoa, munduko **enologorik** goi-mailakoenak irrikatuko lukeena eta begi onez aukeratuko! Joan Mari Irigoien

Xabier Kamio **enologoa** ere Petritegi sagardotegian izan zen. Berria - Euskal Herria

Enologoaren esanetan, “lau elementu horien batuketa egokiak sagardoaren oreka ematen du”. Berria - Euskal Herria

Montserraten aita, izan ere, ez zen **enologoa**, baina bai entomologoa, intsektu eta tximeleta bildumak egiten baitzituen bere txolarteetan. Joan Mari Irigoien

---

enopoto *iz*

Nolabaiteko zoritxartzat har liteke izen hori -drosofila edo likido-zalea- zenbait entomologok erabilitako beste bati nagusitu izana: **enopoto** edo ardo-edalea. Juan Garzia

---

enorant ik **ignorante**.

---

enorantzia ik **ignorantzia**.

---

enoratu ik **ignoratu**.

---

enpagoso *iz adkor* enpagugarria.

Lana, edozein, inoiz ez dago faltan topatzen baldin badakizu eta **enpagosoa** ez bazara. Sonia Gonzalez

---

enpagu *iz* higuina, aspergura, gogorik eza.

Enpagua sentitu zenuen, hamaika biderrez oka egiterainoko **enpagua**. Sonia Gonzalez

Horixe da zuregatik sentitzen dudana: **enpagua**! Sonia Gonzalez

Hau **enpagua**! Sonia Gonzalez

---

enpagugarri *izond* higuingarria, aspergarria, gogaikarria.

Oka egin duen mutikoak burua altxatu du azkenik, behearen gainean potxingo **enpagugarria** utzita. Sonia Gonzalez

Leibnizbarrutiak inoiz esan ez zuen zerbait ere frogatu zela, alegia: zenbait irakurlek testua egin ez ezik, jasangaitz, **enpagugarri**, ezin aspergarriago ere egin dezaketela eta egin egiten dutela. Jon Alonso

---

enpalagatuxe *adlag* higuindu xamar, aspertu xamar, gogaitu xamar.

Luisak, dantzaldiak zorabiatuxe, gizonaren hitzek **enpalagatuxe**, gogoraturik inork ez zuela bere irudirik pintatu, Jacques senarrak halakorik sekula nahi izan ez zuelako, baietz, pintatzaileak modeloa izango zuela erantzun zuen. Felipe Juaristi

---

enpalagu *iz* higuina, aspergura, gogorik eza.

Enpalagua ematen ziolako bustiaren gainean arropa janzteak, eta erabateko fedez sinisten zuelako alkondararen azpian ur tantak gelditzen baziren gorputz barrura sartuko zitzaizkiola eta, guztiz argi ez dagoen prozesu baten bitartez, eztarriraino igo eta amigdalak puztuko zizkiotela. Unai Elorriaga

---

enpalmatu, enpalma, enplamatzen da *ad* zakilaz mintzatuz, tentetu, harrotu.

Ordubete daramat **enpalmatuta**, ikusi dudan momentutik. Jon Arretxe

Neskaren hamaikagarren paja zuzenean eta **enpalmaturik** ikusi ostean, bikote hari agur esan eta bestelako jende taldeei hurreratzen hasi nintzen. Jon Arretxe

Uretara salto egin nuen guztiz **enpalmatuta**, mulatak nire lukainka gorrixkaren kolpea muturretan sentitzean agian guztiz nazkatuta etxetik behin betiko alde egingo zuelakoan. Jon Arretxe

---

enpalme ik **zinta 13**.

---

enpanada *iz* jaki gazi laua, bizigarriekin maneaturiko janari zatiz betea, labean erretzen dena.

Patata, haragi eta baratxuriz betetako **enpanadak**. Pablo Sastre

Sentipen atsegina zen, han Ronekin eserita egotea, Harryren **enpanada** eta pastel guztiak poliki-poliki jan eta jan jardutea. Iñaki Mendiguren

Enpanadarik ez al daukazue? Pablo Sastre

Enpanada minak! Xabier Paya

Enpanada saltzaile bat agertu da kale kantoitik. Xabier Paya

-Goseak amorratzen -esan zion Harryk, kalabaza- **enpanadari** hozkada handi bat eginez. Iñaki Mendiguren

---

enparagarri *izond*

Are nazkagarriagoa zen, dena maitasun faltsuzko erretorika ustel baten barruan, eta aitakeria **enparagarri** batez -hauek ere ongi hausnartutakoak- bildurik azaltzen zuen ber. Jon Alonso

---

enparantza *(ETCn **245** agerraldi) iz* plaza.

Italian **enparantza** guztiak dira Piazza Garibaldi. Koldo Izagirre

Enparantzetan eta bidean topatzen zituenei galdera hau egiten zien: [...]. Askoren artean

Enparantzaren erdian iturri bat zegoen eta alboetan, zauririk gabe, zuhaitz batzuk. Lutxo Egia

Enparantzako arkupeetan elkartu ginen. Txillardegi

Miliziano gehienak kuartelaren aurreko **enparantzan** geratu ziren. Joseba Sarrionandia

Eliz kalea eskuinera, Herriko **Enparantza** eta, zuzen, Zumardira ailegatu nintzen. Lander Garro

Donkin **enparantzan**, saltokien jabeak badabiltza dagoeneko asto-mahaiak jartzen eta salgaiak mahaien gainean zabaltzen. Oskar Arana

Horiz pintatutako taxiek ikusi ezinezko esku batek gidatutako jostailuak ziruditen, Washington Square **enparantzan** hiri osoko trafikoaren gezurrezko jokoa zuzentzen zuen konputagailua balego bezala. Iñaki Zabaleta

Cairoli **enparantzara** orduko, dena nekien: hobeki esan, gertatuaren datu guztiak nituen. Juan Garzia

Etxe-atarian ibilbidez aldatzea pentsatu, eta Artekaletik barik Santa Ana **enparantzatik** jo zuen. Pedro Alberdi

Caudilloaren **enparantza** zioen txapazko errotulu batek. Jon Maia

Horregatik atzo Tuterako Foruen **Enparantzan** elkarretaratu ziren 250en bat pertsona. Berria - Ekonomia

Agintari berriek Errepublika **Enparantza**, baina jende xeheak ohikoan Herriko Plaza deitzen zutenera iritsi zen. Felipe Juaristi

Jende asko, animaturik, Frantzia **enparantzara** hurbildu zen, eta han ez zegoen festarik, ez zegoen ezer, beraiek bezala agertu ziren beste mozolo batzuek salbu. Pako Aristi

Lizarrako Foruen **enparantzan**. Txillardegi

Konstituzio **enparantzara** abiatzen naiz zuzenean, oinezko batzuei galdetu ondoren. Iban Zaldua

Curia kaletik Gazteluko **Enparantzara** noa. Iñaki Zabaleta

Enparantza suerte batera jalgi nintzen; hobeki errateko, patioa. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **enparantzara iritsi** (3); **errepublika enparantza** (5): foruen enparantzan (4); **trinitate enparantzan** (8)

---

enparatu, enpara, enparatzen 1 du *ad* gaineratu.

Erregek, jauna, sei zaldi Berberiako ditu jokatu, eta haien aldera Laertesek ditu **enparatu**, aditu dudanez, sei ezpata-puinale Frantziako, beren hornidurekin, hots, uhala, bilurrak eta abar. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa) gainerako.

Arazo **enparatu** gehienetan inongo bateratasunik erakusten ez zuten nagusi-larriak ados zetozen. Pako Aristi

Ezean, ez dut irabaziko neure lotsa eta sastada **enparatuok** besterik. Juan Garzia

Zure graziak alderdi ahulenean ezarri ditu **enparatuak**. Juan Garzia

---

enparau 1 *iz* gainerakoa. (pluralean)

Aitortu beharra dago, beraz, lurra eta eguzkia, ilargia, itsasoa eta diren **enparau** guztiak ez direla bakarrak, kopuru neurrigabekoak baizik. Xabier Amuriza

Tradizo espainol jatorrera itzultzeko erretolikarekin ari ziren erromantiko, krausista, Menéndez Pelayo, Unamuno eta **enparau** guztien aurka [...] Ortega-k zirt-zart tradizio bedeinkatu hori guztia ezespainola deklaratzen du. Joxe Azurmendi

Makiak, anarkistek, Puig--Antichek, FRAPek, ETAk, eta antzeko **enparauek**, ez zuten deus egin diktadura hura amaitzeko. Hasier Etxeberria

Eraso haiexek erakutsi ziguten badaezpadakoak zirela gure gazteluak eta **enparauak**. Edorta Jimenez

Gaur egunera arte iritsi diren linierra, kornerra, orsaia eta **enparauak** ez dira gaur goizekoak. Iñigo Aranbarri

Garaikurren banaketarako behar ziren kaxoiak, mahaia eta **enparauak** igotzen hasi ziren, Eta antenak, pinuak eta **enparauak** guztion mesederako izango dira azken baten. Josu Landa

Behean afrikarrak eta asiatikoak eta **enparauak**. Joxe Azurmendi

1000 urteko gazteluak eta gaztelauak, santuak eta gortesauak, gora gutarrak eta hor konpon **enparauak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Alabek eta **enparauek** burutik egina zegoela pentsatuko zuten, harritu egingo ziren Gerrikagoitiatarrak ere agian. Xabier Montoia

Ez dakit Bakejek eta **enparauek** zer nolako lezioak emanen dituzten ditxosozko kontzeptu berri honen inguruan. Patziku Perurena

Inork ez zuen zalantzan ipini Otamendi, Torrealdai eta **enparauen** tortura salaketen testigantza. Jokin Urain

Are lotsatuago, Pauloren erreakzioa, Valentinarena eta **enparauena** ikusirik, ikusten ari zen bezala. Pedro Alberdi

Hamazazpi eskola-urtez aoristoekin eta Peloponesoko gerrarekin eta **enparauekin** jo eta su jardun ondoren, aurreneko aldiz, ikasitako gauzak baliagarri izaten hasiak zitzaizkidan. Juan Garzia

Gauza jakina baita zer ondorio segitzen diren giza izaeraren sotoak aztertzen denbora galdu zale diren intelektual eta **enparauekin**. Anjel Lertxundi

Sofia Loren, Claudia Cardinale eta **enparauei** begira handitu zitzaizkigun guri begiak. Joseba Sarrionandia

Hala ere, haizeak alde jo zien atzo Endesa (%2), Iberdrola (%0,31) eta **enparauei**, Wall Street lagun. Berria - Ekonomia

Oroitzen buzkantza, orantza eta **enparauez** goian esandakoak? Patziku Perurena

Araua oso zorrotza da metro edo tren geltokietan, saltoki handietan, zinemetan edo **enparauetan** erabiliko diren materialekin. Berria - Gaiak

Hitzez hitzekoak emateko ez ezik, komatxoak gomendatzen baitzitzaizkidan lan artistiko, egunkari, liburu, aldizkari, zinema, antzoki eta **enparauetarako** ere. Iñigo Aranbarri

2 (singularrean)

Milosevic, Webo, Delporte eta **enparaua** jokatzeko moduan ez izateak hutsune garrantzitsuak eragiten dizkio taldeari, baina bere ordezkoek ere maila ona eman ahal dutela uste dut nik, nahiz eta emaitza bolda txarra hutsune hauekin batera etorri den. Berria - Kirola

Ronaldinho, Eto'o, Deco, Xavi, Giuly, Puyol, Messi eta **enparaua** garrantzitsuak dira, baina taldea da garrantzitsuena. Berria - Kirola

Ederto, hau nahikoa dozu hiruhileko-pare baterako, eta **enparaua** seguru gordeko dogu zuretzat -Griphookengana itzuli zen-. Iñaki Mendiguren

3 ***enparauko*** *izlag*

Enparauko kontratuetan, arau orokorrak eman ditugu berriro ere. Andres Urrutia

Haizea eta euria -kristaletan behera irristaka- hainbesterainokoak ziren ezen bai baitzirudien gela, ohe handia eta **enparaukoak** batetik bestera zebiltzala, globo gidagarri bat itsaso gainean doan bezala aurrera eginez. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

enparauak ez (3); **enparauek ez** (4); **eta enparaua** (5); **eta enparauak** (74); **eta enparauei** (10); **eta enparauek** (55); **eta enparauek ez** (4); **eta enparauekin** (16); **eta enparauen** (38); **eta enparauetan** (4); **eta enparauez** (4)

---

enparazita

"Egon zaitez geldi, mesedez!" Genevièvek **enparazita** dagoenaren aurpegia jarri zuen. Bernardo Atxaga

---

enpastatze *iz* hortz-haginetako zuloak pastaz betetzea.

Botilak, estalkiak eta enpasteak: Plastikozko botilak, plastikozko estalkiak eta **enpastatze** zuriak egiteko BPA izeneko substantzia bat erabiltzen dute. Berria - Gaiak

---

enpaste[1] *iz* hortz-haginetako zuloak pastaz betetzea; zulo hori betetzen duen pasta.

Aho-hortzetako osasunaren barnean honako hauek sartuko dira, gutxienez: ahoa garbitzea, ortodontziak, **enpasteak**, periodontzia, exodontzia eta protesiak. Berria - Euskal Herria

Botilak, estalkiak eta **enpasteak**: Plastikozko botilak, plastikozko estalkiak eta enpastatze zuriak egiteko BPA izeneko substantzia bat erabiltzen dute. Berria - Gaiak

Zaputz samarra zela eta **enpasteak** garestitxo kobratzen zituela? Patxi Iturritegi

Emakume batek ahoa zabaldu orduko badakit non dauzkan **enpasteak**. Koro Navarro

Hortzetako **enpasteak** egiteko zerbait ekar dezala ere eskatuko diogu. Josu Zabaleta

Hasierako garai haietan, aski zen hortzetan **enpaste** bat edukitzea, eskaera atzera botatzeko! Alberto Ladron Arana

---

enpaste[2] *iz* ahotsaren nolakotasun desberdinak egoki batzea; batze horren ondorioa.

Ukrainarrak, berriz, **enpaste** handiko doinuaz, Brahams-en Requiem-eko zatian salbu, eroso aritu ziren. Berria - Kultura

---

enpate **1** *iz* lehiakietez eta kidekoez mintzatuz, berdinketa.

Epaileek jarri zieten **enpatea** hausteko aukera polita: «Epaimaikoak kasu hauetan / zer ein behar dan badaki / bertsolariak bota uretara / ta igerian erabaki». Berria - Kultura

2 irud/hed

Egunak eta gauak erdibidean topo egiten duten bi sasoi ekinozioetako horietan? Ba, normalean, irabaziak eta galerak **"enpate"** batean dauzkagula. Pello Zabala

---

enpatia **1** *iz* pertsona batek afektiboki bat egitea beste pertsona baten sentimenekin.

Buruestimua, beren buruarekin duten harremana, autokontrola, pertsonen arteko harremana eta, batez ere, **enpatia**, besteen tokian jartzeko gaitasuna. Berria - Euskal Herria

Ramon Lazkano eta bion artean sortu den **enpatia** oso ona izan da hasieratik. Berria - Kultura

Hainbeste itxiko ez balitz, errazago egingo litzaidake gauzak haren ikuspuntutik ikustea, haren larruan sartzea, apur bat, nola esan, **enpatiaz** jokatzea. Patxi Iturritegi

Sentitzen du alde fisiko edo fisiologikoarekiko -aziendaren oinaze edo izuarekiko- errukia izan dezakeela, baina ez du **enpatiarik** jendearen gogo-egoeraren eta etorkizunaren aurrean. Xabier Olarra

Ikuslearen **enpatia** eta irudimena baliaturik beste mundu batzuetara zabalik dagoen leihoa da Miegen pintura. Berria - Kultura

Bestela itxita dagoen emozio-mundu baterako atea zabaltzen omen dio makinak, eta haienganako **enpatia** sentitzen uzten, ia bidea erakusten. Xabier Olarra

Enpatia aipatzen duzu negoziazio prozesuetako faktore garrantzitsuenen artean. Berria - Euskal Herria

Baina orain hemen bakarrik naizela, eta ezagunak gogoan ditudala, iduritzen zait idazkera-ariketaren barnean eta **enpatiaren** bidez argiago agertzen zaizkidala adiskide eta hurbilak. Piarres Aintziart

Enpatiarako gaitasunik ez dute erakusten. Berria - Euskal Herria

Errua "sekuentzia-arazo"ei egozten bazien ere, bazirudien pertsonaiekiko **enpatiarik** ezak sortzen ziola arazoa, eta zio eta asmoen joko katramilatua ez ulertzeak. Xabier Olarra

Oihu txikiak, plazer espasmoak eta **enpatiazko** hasperenak. Patxi Iturritegi

Imitaziozko artea, naturalista, *Einfühlung* hori den munduarekiko **enpatiazko** identifikazio-harreman horretan oinarritzen da. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gure familiak **enpatia** handia die gaur egun euren senide presoak ikusteko hainbeste kilometroko bidaiak egin behar dituzten familiei. Jokin Urain

Beren burua oldar hartatik une batez libre ikusi zutenek hartu zuten lasaitutik segundo batzuk irago ostean, **enpatia** izugarriko dardarako latz bat jabetu zen han zeuden guztiez. Joxan Elosegi

Benetako **enpatia** behar da, estutasun egoera bat bizi duen horri eskua luzatzea. Berria - Euskal Herria

Ene **enpatia** txit sentikorra, maiteñoak. Patziku Perurena

---

enpatiko **1** *izond/iz* enpatiaz ariten dena.

Zapiain -hitz zehatz batez difinitzekotan- kritiko **"enpatikoa"** da. Markos Zapiain

-Enpatikoak eta parte harrarazleak, objektiboki bereiziak baino areago. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

enpatxatu, enpatxa, enpatxatzen da/du *ad*

Ordurako koroa buru gainean zuenean, gizakiaz gaindiko ahaleginen tiraniak menderatuta zuenean, kortisonak, analgesikoek eta txaloek **enpatxatuta** zutenean, eta bere jarraitzaileen beharrek eta berak samindutakoen gorrotoek erasotua zutenean. Berria - Kirola

---

enpatxu **1** *iz* betekada, asebetetzea. • *irud/hed*

'Gustatzen zaizu neska bat eta haren atzetik zabiltza denbora guztian eta, kasurik egiten ez badizu, ezin duzu **enpatxua** gainetik kendu. Joseba Sarrionandia

Literaturaren **enpatxu** eztia, droga bat balitz bezala haren beharra zainetan betiko sarturik utzi zidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Zurginaren haserreak liluraturik zeuzkan nolabait, eta haren esanak, galegozko eta euskarazko **enpatxuan** jaurtiriko madarikazio andana, zubira behartu zuen kapitaina. Koldo Izagirre

2 herabetasuna.

Enpatxu handirik gabe esan zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

---

enpaztu, enpaz(tu), enpazten du *ad* kitatu.

Azken gerra zibila arakatzen aritu dela, eta joandako mundualdi baten kontaketa hutsari soilik ez zaiola lotu oraingoan, baizik eta oraindik puri-purian eta **enpaztu** gabe daukagun konfliktoaren zauria garbitzen-edo saiatu dela. Berria - Kultura

---

enpeinatu, enpeina, enpeinatzen da *ad* tematu, lehiatu; ahalegindu.

"Platonen ekibokazioa" oso gauza zaharra da filosofian, enteratu nahi ezta **enpeinatzen** ari direnentzat ere. Joxe Azurmendi

Irrazionala, behiala bortxakeria irrazionalak inposaturiko egiturak orain ere mantentzen **enpeinatzea**. Joxe Azurmendi

Morala "razionalki oinarritzen" **enpeinatu** diren lehengo filosofo moralisten aurka, sasimoral horren genealogia bastarta saiatuko da erakusten oraingo filosofo (agian hobe: "psikologo") inmoralista. Joxe Azurmendi

---

enpeinu *iz* gogo bizi, tema; lehia, ahalegina.

Hor bai sortzen dela afizioa eta afana eta **enpeinu** ezin baztertua...! Pello Zabala

Euskaraz bizi gura duen euskalduna egun osoa atergabeko teinka, porrot, kontzesio, **enpeinu**, stressean bizitzera behartua dago. Joxe Azurmendi

Saiatu, betidanik saiatu da jendea, komeni ere komeni zitzaion-eta, **enpeinu** biziz ahaleginak eginez, ea antzematen zion hurrena zetorren eguraldiari. Pello Zabala

Zuk telefonoz halako **enpeinuarekin** eskatu zenidan eta, pentsatu nuen, ea ba, hori besterik ez bada gizonari gustu pixka bat ematen diogun, baina ene!, mesede ederra egin dit, eta egiten ari zait, ez daukazu sinesterik. Pako Aristi

Neskak ikasteko halako **enpeinua** zeukala ikusita, norbaiti bururatu komentua toki egokia izan ote zitekeen liburu artean bizitzeko. Arantxa Iturbe

Pazko inguruko ilbeteak beti baitu aldaketen bat ekartzeko **enpeinua**. Pello Zabala

Itsasoz zihoala, Balear Uharteen inguruan, gatibuak libratzeko asmo eta **enpeinutan** orduan ere, itsas-lapur batzuk harrapatu zuten. Pello Zabala

---

enpeltre *iz* oliba mota, luzaxka eta asimetrikoa.

Jugoslavian, Euskal Herrian, Aljerian, Jordanian, Egipton, Argentinan, Sirian, Turkian, Australian eta, batik bat, Txinan (*Olea europaea* gorabehera) olibondoa aldatzen segitzen dute, eta oliba barietatea, batez ere, pikual, arbekina, hojiblanca, zurixka, **enpeltre** eta verdial dira, hots, olio-oliba landatzen da, jatekoa bigarren mailara igarota. Edorta Agirre

---

enperadore **1** *iz* inperio bateko buru den agintaria.

Frankoniako dukea **enperadore** hautatu zutenean. Iñaki Iñurrieta

Oton IV.a (1198-1218) 1209ko irailaren azken egunetan igaro zen Spoleto dukerritik Erromara bidean; bertan urriaren 4an **enperadore** koroatu zuten. Askoren artean

Italian eta gero Egipton egin du bere fama eta baliatu du "Directoire" delakoaren ahulezia, bere bidearen idekitzeko, kontsul lehena, kontsul bizi guzirako, **enperadore** azkenean. Herria

Akemenestar Inperioan "jaiotzaz aitoren seme ziren pertsiar mutil guztiak", Herodotoren arabera, **"enperadorearen** gortean hezten ziren, bost eta hogei urte bitartean, hiru gauzatan eta hirutan bakarrik: zaldiz ibiltzen, tiroketan eta egia esaten". Iñaki Mendiguren

Aldi hartan Oton **enperadorea** segizio eta arrandia handiz igaro zen inguru haietatik, lurreko inperioaren koroa hartzera. Askoren artean

Konstantinoplan urruti zegoen Anastasio **enperadoreagandik** prokontsul-titulua eta kontsul-intsigniak eskuratu zituen. Iñaki Mendiguren

Ohitura zen **enperadoreak** zenbait lege zibiletatik salbuestea. Iñaki Iñurrieta

Enperadorearen udako jauregia. Xabier Olarra

Josefina, sortzez kreol eta sineskeriazalea, **Enperadorearen** lagun zetorren Baionara. Koldo Izagirre

Hala aldarrikatu zuten **Enperadorearen** mezulariek hiriz hiri. Felipe Juaristi

Hura gabe, **enperadorearen** kanoiendako bazka baizik ez gaituk. Aingeru Epaltza

Argazkian, aitak **enperadorearen** guardiako kapitain-uniformea zeukan soinean. Xabier Olarra

Tiberio **enperadorearen** agintealdiko hamabosgarren urtean zen. Elizen arteko biblia

Libri Feudorum liburuetan ikusten dudanez, Konrado II.a **enperadorearen** erregealdiaren hasieran, feudoak, haren mendeko herrialdeetan, ez ziren bilobengana pasatzen. Iñaki Iñurrieta

Antzinako Ekialdeko inperioetan [...] lurra **enperadorearen** jabetza zen, eta esleipena bizi bitartekoa beti. Koro Navarro

Rodolfo Habsburgokoa, Germaniako Erromatar Inperio Santuko **enperadorea**, Bohemiako eta Hungariako erregea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Garbi ikusi dut, hala ere, ez duela heriotza merezi duenik ezer egin; baina **enperadore** jaunarengana jo duenez gero, harengana bidaltzea erabaki dut. Elizen arteko biblia

Berehala eskoltako guztien eztarritik orro berbera atera zen, ezin ozenago: "Gora **Enperadorea**!". Jon Alonso

Digitazio indartsuaren jabe izanik, ***Enperadorea*** esaten zaion kontzertuaren zailtasunaren gainetik aise zegoela erakutsi zigun. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Karlomagnoren inperioa, oso laster osatua, **enperadore** handia hil eta handik gutxira desegiten da. Koro Navarro

Paregabeko zerbitzaria delako Errege Jaunarentzat eta haren aita **Enperadore** Handiarentzat, bai eta haren ama andre **Enperadorearentzat**. Piarres Xarriton

Hori **enperadoreak** handiak eta aita santuak txikiak ziren garai batean egin zen, Otondarrak Italiara inperioaren duintasuna berrezartzera etorri ziren garaian. Iñaki Iñurrieta

Teodosioren kodea ikus daiteke: **enperadore** kristauen ordenantzen bilduma bat besterik ez da. Idazkeraren usadioa hobeto gorde zen Italian, han aita santuak eta

enperadore grekoak baitziren nagusi, eder eta jori hiriak, eta garai hartan ia-ia antxe bakarrik jarduten zen merkataritzan. Iñaki Iñurrieta

Kontatuko dudana **Enperadore** Horiaren agintaldian gertatu zen, Txinan artistak, zentzurik onenean, desertuan harea-aleak bezain ugariak ziren erregealdian. Felipe Juaristi

Ilunabarra etorri eta entzunaldiak bukatzean, **enperadore** zorigabea [...] aulkitik jaiki eta bere apartamentu pribatuetarantz abiatzen zen. Iñaki Mendiguren

Nork egin zion iruzur Bohemia-ko Rudolph **enperadore** buruarinari? J.M. Olaizola "Txiliku"

Cuzcon, **enperadore** inkaren gortean, heziketa-ikastaro erregular bat zegoen, azterketak egiten zirelarik zenbait fasetan. Iñaki Mendiguren

Ekialde Urruneko estatu unibertsaleko **enperadore** mantxuek zera uste zuten beren diplomazi tratuetan: [...]. Iñaki Mendiguren

Tatariar **enperadore** musulman bat izan zen. Karlos Zabala

Europan alderrai zebiltzan alkimista eta kinkailari guztiek Pragako gazteluan, **enperadore** alkimiazalearen babesean, toki bat edukitzearekin egiten zuten amets. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erromatar **enperadoreek** sorturiko kolonien zerrenda luzea. Iñaki Mendiguren

"Lau Eskualdeetako Erresuma" sumerikoan Ur-etik gobernatzen zuten sumertar **enperadoreen** mende bildutako kode goiztiar bat izan zen. Iñaki Mendiguren

Yung Lo-k, Ming dinastiako bigarren **enperadoreak**, Konstantinoplako azken **enperadoreak** Ekialdeko eliza aita santuaren agintepean jartzen hasi zirenean. Iñaki Mendiguren

Lehen **enperadoreen** garaian, epaiketek etengabe sakailatu zituzten Erromako familia handiak. Iñaki Iñurrieta

Kristau Elizaren lurralde-antolaketa hori ez zuen inongo **enperadorek** sortu. Iñaki Mendiguren

3 (elkarketa kopulatiboetan)

Vienan **enperadore**-enperatrizek egin zieten harrera. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Errusiako **enperadore**-andreak, Katalina Handiak, Euler nahi zuen bere zientzia-akademiarako. Jon Muñoz

Txostena jasoko zuen prelatua **enperadore**-andrearen aitorlea zen. Juan Garzia

Seneka, politikan bustia, urte zailenetan Neron errukirantz bideratzen saiatua (arrakasta handirik gabe, garai hartan hilarazi baitzuen **enperadore**-poetak ama Agripina), Epikurok aldarrikatu bizitza publikotik erretiratzearen aldekoengana lerratuko da gero. Markos Zapiain

Bestelakoa izan zen Jose II.a **enperadore**-erregearen ahalegin hutsegina. Iñaki Mendiguren

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Italiako errege-**enperadoreak** hartu du gobernuaren kargua. Josu Zabaleta

1821aren aurreko mende-erdian, greziar fanariotek Otomandar Inperioan nagusitasuna irispidean zutela pentsa zezaketen, garaikide zen Jose II.a errege-**enperadorea** habsburgotarren danubiar monarkian alemanei ziurtatzen ahalegindu izan zen bezalako nagusitasuna. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alemaniako enperadore (4); **aurelio enperadore** (3); **baina enperadore** (3); **da enperadorea** (3); **enperadore bihurtu** (3); **enperadore erromatarren** (3); **enperadore eta** (3); **enperadore handia** (4); **enperadore hori** (5); **enperadore horia** (5); **enperadore horiak** (14); **enperadore horiaren** (15); **enperadore horiari** (4); **enperadore izan** (3); **enperadore izan zen** (3); **enperadorea bera** (5); **enperadorea hil** (4); **enperadoreagana jo** (5); **enperadoreak berak** (6); **enperadoreak bere** (4); **enperadoreak eta** (3); **enperadoreak ez** (8); **enperadorearen alde** (3); **enperadorearen aurrean** (5); **enperadorearen eta** (4); **enperadorearen garaian** (3); **enperadorearen guardia** (4); **enperadorearen guardiak** (8); **enperadorearen guardiako** (5); **enperadorearen guardiaren** (9); **enperadorearen guardiaren semeak** (8); **enperadorearen jantzi** (6); **enperadorearen jantzi berria** (6); **enperadorearen kontra** (3); **enperadorearen liburutegian** (3); **enperadoreen garaian** (5); **erromako enperadore** (3); **erromatar enperadore** (9); **erromatar enperadorearen** (5); **erromatar enperadoreek** (3); **eta enperadore** (9); **eta enperadorea** (4); **eta enperadorearen** (11); **ez enperadore** (3); **frantziako enperadore** (4); **indiako enperadore** (3); **lehen enperadorea** (3); **marko aurelio enperadore** (3); **napoleon enperadorea** (3); **zen enperadore** (3); **zion enperadoreari** (3); **zuen enperadoreak** (4); **zuen enperadorearen** (4)

---

enperadoregai *iz* hurrengo enperadorea izateko izendaturiko pertsona.

Agian aitarengandik ikasi zuen bere seme Konstantzio Handiak oso boteretsu eginak zeuden kristauak alde izaten, eta hauen laguntzaz lortu zuen beste **enperadoregaiak** garaitzea. Juan Martin Elexpuru

---

enperadorego **1** *iz* enperadoaren agintea.

Azkenean, Ingalaterrako, Austriako, Alemaniako, Errusiako, Espainiako, Portugaleko eta beste nazioetako indarren aitzinean, Waterlooko zelaian amore eman behar izan zuen, 1815.ean eta **enperadoregoari** uko egin, betikotz. Piarres Xarriton

Ordurako ez zitzaion pitorik ere interesatzen otomandar **enperadoregoari** buruzko ezer. Karlos Linazasoro

2 inperioa.

Hala aldarrikatu zuten Enperadorearen mezulariek hiriz hiri, **Enperadorego** mutur batetik besteraino joanez. Felipe Juaristi

---

enperadoresa *iz* enperatriza.

Iparraldera begiratuz, Eugénie **enperadoresak** bere kuttuntzat zeukan "Villa Eugénie" jauregi txapal eta gorri-zuria ageri zen; txilarrak ia guztiz estaltzen zuen hondar ezponda baten gainean. Txillardegi

Joan den asteazkenean Austrian ginen eta berriz ikusi zitezken Vienne hiri nagusia, ondoan duen jauregi ederra, Maria Antonieta Frantziako erreginaren oroitzapenak eta Sissi **enperadoresarenak**. Herria

Frantziako Enperadore-**Enperadoresaren** lehenengo bisitatxoa ere gogoratzen zait gardenki. Txillardegi

---

enperatriz **1** *iz* enperadorearen andrea; inperio baten buru den emakumea.

Orduan jakin nuen ezen Mignon izanen nuela, bai gau hartako printzesa, erregina eta **enperatriz**, eta bai ene desirkundeen mantenua, bazka eta bihia ere. Joan Mari Irigoien

Hirmengarda **enperatriza** hil eta gero, zeinekin hiru haur izan baitzituen, Judithekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuen harekin. Iñaki Iñurrieta

Justinianoren emazte Teodora **enperatrizaren** antzera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-**Enperatriza** -errepikatu zuen apaizak, debozio handiko tonuan. Xabier Olarra

Jimmy, hire ama **enperatriz** bat duk. Lopez de Arana

Enperatrizari eskua luzatu zion kapitaina, Lafon deitua, hiltzera izan zen hargatik kondenatua, eta fusilatua. Koldo Izagirre

Ekialdeko Afrikara Punt lurraldera Hatshepsut **enperatrizaren** erreinaldian (K.a. 1486-68) egindako espedizioan. Iñaki Mendiguren

Moskoviako Elisabeta **enperatrizaren** hogei erregetza-urteak. Juan Martin Elexpuru

Errusiar elezahar batek dio, 1787an, Katalina Errusiako **enperatriza** Inperioaren hegoaldeko probintzietan barrena bisitaldia egiten ari zelarik, bere lehen ministro Grigori Aleksandrovich Potemkin egun bat lehenago aurreratzen zitzaiola **enperatrizak** egin beharreko bisitari, eta gezurrezko etxe-aurre dotoreak eraikitzen omen zituen etxe eta herrixka txiro haietan, hartara, **enperatrizaren** gurdi ederretik ikusita, txukun eta oparo ematen zuten, berez miseriazkoak zirenak. Iñaki Heras

Errege Jaunaren ama **Enperatriza** andereak aitzinetik gogorki eskaturik. Piarres Xarriton

Vienan enperadore- **enperatrizek** egin zieten harrera. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erregina eta enperatriz (3); **eta enperatriz** (4)

---

enpin ik **enfin**.

---

enpireumatiko *iz* su bizian ezarririko gai organikoei dagokiena.

Bazen halako usain **enpireumatiko** bat airean, gozoa, atsegina. Josu Zabaleta

---

enpiria *iz* esperientzia.

Horrela, zeharo galdurik jada objektuekiko lotura beharrezkoa (adimena eta sentimenak bitartekari), **enpiriaren** eremua abandonaturik, arrazoimena espekulazioetan hegaldatzen da. Askoren artean

---

enpiriko *(ETCn **2.517** agerraldi) izond* esperientziari dagokiona edo esperientzian oinarritua.

Esperientziaren osagai **enpiriko** soilen artean. Ibon Uribarri

Sentimenen materia amorfoari kategoria edo adimenaren moldeen eta kontzeptu "hutsen" bitartez adigarriki ematen zaio forma eta, soilik ondoren iristen gara kontzeptu **enpiriko** edo esperientziara. Askoren artean

Honek esan nahi du esperientzia orotarako balio dutela, zientzia **enpiriko** orotarako salbuespenik gabe. Ibon Uribarri

Arte **enpiriko** bat da hori, berdin-berdin aplikagarri zaldi eta behiei zein gizakiei. Juan Garzia

Analogiak badu errealitate **enpiriko** bat, inondik ere haren jatorrian dagoena. Josu Zabaleta

Agerpen bat denez, izaera **enpiriko** bat ere izan behar du, beraz, izadiko gauza guztiek duten bezala. Ibon Uribarri

Lege **enpiriko** soil baten arabera elkartzen dira azkenean elkarren segidan doazen edo elkarri lagun egiten dioten errepresentazioak. Ibon Uribarri

Hala ere, kasu honetan ederki esan daiteke baldintzetarantz doan itzulera, h[au] d[a], sintesi **enpiriko** jarraitua, alde honetatik agindua edo ezarria dela. Ibon Uribarri

Honela askatu den kontzeptuaurreko mailak ez darama ez idealtasun ostertz batera, ez abstrakzioen genesi **enpiriko** batera. Xabier Arregi

Auzi **enpiriko** horren galdera bestelakoa litzateke, guztiz desberdina: nola sortzen dira modu kausalean usteak? Askoren artean

Objektuen ezagutza **enpiriko** oro halabeharrez halako adigaien araberakoa da. Ibon Uribarri

Jatorri **enpiriko** baten baieztapena generatio aequivoca moduko zerbait litzateke. Ibon Uribarri

Antzinatetik bertatik osatzen hasi zen behaketa **enpiriko**, esperimentazioen eta teorien corpus zabal bat dago gai honi buruz. Josu Zabaleta

Begiespen **enpiriko** baten objektu indeterminatuak agerpena izena du. Ibon Uribarri

Guk ikerketa **enpiriko** bat egin dugu hiri handiek garapen bidean arrakasta izateko zer egiten duten aztertzeko. Berria - Gaiak

Agerpenen eduki **enpiriko** hau a priori errepresentatzen duen adigai bakarra gauzaren adigaia da oro har. Ibon Uribarri

Filosofia **enpiriko** zaharraren aztarnak, harribitxiak bezala landuak, jakintsuak ezezik herriak ere erabiltzen dituenak. Patziku Perurena

Historizismo **enpiriko** positibistak, historia afilosofikoa egin guraz, azientifikoa bihurtu du. Joxe Azurmendi

Lege horiek konbinaketa erdi- **enpiriko**, erdi-intuiziozkoak dira, izatez. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adigai enpiriko (6); **adigai enpirikoa** (7); **adimenaren erabilera enpiriko** (4); **adimenaren erabilera enpirikoa** (3); **arrazoimenaren erabilera enpiriko** (5); **baldintza enpiriko** (7); **baldintza enpirikoa** (4); **batasun enpirikoa** (4); **begiespen enpiriko** (15); **begiespen enpirikoa** (17); **bere izaera enpirikoa** (4); **enpiriko ahalbait** (3); **enpiriko ahalgarri** (9); **enpiriko ahalgarria** (3); **enpiriko bakarra** (3); **enpiriko bat** (10); **enpiriko batean** (3); **enpiriko baten** (5); **enpiriko eta** (5); **enpiriko gisa** (3); **enpiriko hau** (4); **enpiriko hori** (4); **enpiriko oro** (9); **enpiriko ororen** (6); **enpiriko ororen aurretik** (3); **enpiriko orotatik** (3); **enpiriko soila** (5); **enpiriko soilak** (3); **enpirikoa baino** (6); **enpirikoa baino ez** (4); **enpirikoa besterik** (9); **enpirikoa besterik ez** (9); **enpirikoa da** (11); **enpirikoa da eta** (3); **enpirikoa den** (19); **enpirikoa dena** (4); **enpirikoa du** (3); **enpirikoa edo** (3); **enpirikoa egiten** (4); **enpirikoa eta** (11); **enpirikoa ez** (5); **enpirikoa izan** (7); **erabilera enpiriko** (21); **erabilera enpiriko ahalbait** (3); **erabilera enpiriko oro** (4); **erabilera enpiriko soila** (4); **erabilera enpirikoa** (16); **erabilera enpirikoa egiten** (3); **ere enpirikoa** (3); **errealitate enpiriko** (4); **errealitate enpirikoa** (3); **errepresentazio enpiriko** (3); **esakune enpirikoa** (4); **eta enpirikoa** (6); **ez enpirikoa** (3); **ezagutza enpiriko** (13); **ezagutza enpirikoa** (6); **ezer enpirikoa** (3); **ikerketa enpiriko** (3); **irizpide enpirikoa** (3); **itzulera enpiriko** (5); **itzulera enpirikoa** (4); **izaera enpiriko** (6); **izaera enpirikoa** (8); **jatorri enpirikoa** (3); **kausalitate enpiriko** (3); **kontzientzia enpiriko** (10); **kontzientzia enpirikoa** (7); **lege enpiriko** (3); **oinarri enpiriko** (4); **printzipio enpiriko** (4); **psikologia enpirikoa** (3); **sintesi enpiriko** (4); **sintesi enpirikoa** (3); **zientzia enpiriko** (3); **zientzia enpirikoa** (3)

adiera enpirikoan (4); **adigai enpirikoak** (3); **adimenaren erabilera enpirikoaren** (3); **adimenaren erabilera enpirikoari** (3); **arrazoimenaren erabilera enpirikoaren** (6); **begiespen enpirikoan** (12); **begiespen enpirikoaren** (9); **bere erabilera enpirikoan** (3); **bere erabilera enpirikoaren** (3); **egia enpirikoaren** (3); **enpirikoak baino** (4); **enpirikoak besterik** (4); **enpirikoak besterik ez** (4); **enpirikoak dira** (4); **enpirikoak diren** (4); **enpirikoak ez** (5); **enpirikoan besterik** (3); **enpirikoan besterik ez** (3); **enpirikoaren arabera** (4); **enpirikoaren arteko** (3); **enpirikoaren baldintza** (3); **enpirikoaren bidez** (3); **enpirikoaren bitartez** (8); **enpirikoaren legeen** (3); **enpirikoaren oinarri** (4); **enpirikoaz gain** (4); **erabilera enpirikoan** (11); **erabilera enpirikoaren** (16); **erabilera enpirikoaren oinarri** (3); **erabilera enpirikoari** (6); **erabilera enpirikoaz** (6); **erabilera enpirikoaz gain** (3); **errepresentazio enpirikoaren** (4); **eta enpirikoaren** (3); **eta enpirikoaren arteko** (3); **eta ez enpirikoak** (3); **ez enpirikoak** (4); **ezagutza enpirikoaren** (16); **ezagutza enpirikoari** (3); **idealismo enpirikoari** (3); **ilara enpirikoaren** (3); **itzulera enpirikoan** (7); **itzulera enpirikoaren** (3); **izaera enpirikoaren** (4); **izaera enpirikoaren arabera** (3); **kontzientzia enpirikoaren** (3); **objektuen ezagutza enpirikoaren** (3); **pentsatze enpirikoaren** (3); **printzipio enpirikoak** (3); **sintesi enpirikoaren** (8); **sintesi enpirikoari** (3)

baldintza enpirikoen (10); **baldintza enpirikoen ilaran** (3); **baldintza enpirikoetatik** (3); **baldintza enpirikoetatik** (3); **begiespen enpirikoek** (3); **enpirikoek ezin** (3); **enpirikoek ezin dute** (3); **enpirikoen arabera** (11); **enpirikoen bitartez** (4); **enpirikoen ilaran** (3); **enpirikoen menpean** (3); **lege enpirikoen** (13); **lege enpirikoen arabera** (9)

---

enpirikoki *adlag* modu enpirikoan.

Koloreak **enpirikoki** sailkatzeko hiru parametro jokatzen dira batera: [...]. Josu Zabaleta

Arrazoimen arruntetik alokatzen dituzten erregela arruntak eta **enpirikoki** erabiliak baliagarriak zaizkie axiomen ordez. Ibon Uribarri

Enpirikoki behaturiko gauzak ez dira nahitaez halabeharrezko patu baten emaitzak. Iñaki Mendiguren

Adimenak ez du baimentzen agerpenen artean **enpirikoki** baldintzatugabea litzatekeen baldintzarik. Ibon Uribarri

Beraz, munduaren muga absolutua ezinezkoa da **enpirikoki**, eta beraz, absolutuki ere bai. Ibon Uribarri

"Kameraren mugimendu" kontzeptua **enpirikoki** oso heldua den arren, teorikoki ez da oso trinkoa. Josu Zabaleta

Hipotesi horietatik bakarra ere ez da **enpirikoki** egiaztatu. Koro Navarro

Izan ere, denboren bilkuran dagoen jarraitasun hori agerpenetan soilik ezagut dezakegu **enpirikoki**. Ibon Uribarri

---

enpirikotasun *iz* enpirikoa denaren nolakotasuna.

Deskribapen arkeologikoari eta atalaseak, hausturak eta transformazioak ezartzeko bere nahiari kontrajartzea historialarien benetako lana, hau da, jarraitasuna erakustea [...]; eta **enpirikotasunekiko** axolagabetasuna aurpegiratzea. Xabier Arregi

enpiriokritizismo *iz* doktrina politikoa, funtsean esperientzia hutsaren kritikan datzana.

Leninen ezagutzaren nozioa **enpiriokritizismoari** eginiko kritikan. Askoren artean

---

enpirismo *(orobat **empirismo**)* **1** *iz* ezagutza oro esperientziatik datorrela dioen doktrina; esperientzian oinarritzen den metodoa.

Enpirismoan oinarriak sentipen-datuak dira. Askoren artean

Coventryko poetak ez baitzuen besterik bilatu: metafisikari bizkarra erakutsiz, esperientziari - **enpirismoari** - ateak zabaltzea. Anjel Lertxundi

Irakaskuntzan ohitura da razionalismoa eta **enpirismoa** kontrajartzea: beharbada egokiagoa litzateke -Lockeri gagozkiola batik bat- razionalismo matematiko-deduktiboaz (metafisiko) eta razionalismo induktiboaz (enpirista) mintzatzea. Askoren artean

Quinek perpaus analitikoen eta sintetikoen arteko bereizketa du **enpirismoaren** lehen dogmatzat. Askoren artean

Enpirismoak erlijioa arrazoi enpirikoen epaitegitik pasaraziko du. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Russellek, aldiz, **enpirismo** hutsaren alde egingo du: ezagutza zuzena, subjektu batek objektu bat enpirikoki zuzenean ezagutzea, ezagutza ororen oinarrian egongo da. Askoren artean

Programa berri horren bultzatzaileek filosofo eta zientzialari talde desberdinak osatu zituzten -horietako ezagunenak Vienako Zirkulua eta Berlingo Zirkulua ziren- orientabide komun batean, **enpirismo** logikoa deritzanean -edo positibismo logikoa, neopositibismoa-. Askoren artean

Enpirismo dogmatikoaren aurrean, Quinek dogmarik gabeko ekarpen propioa egiten du. Askoren artean

Etikari buruz ari denean, Aristoteles munduaren edertasunaz eta bertan aurki daitekeen zorionaz mintzo zaigu, Platonen bortizkeriaren aurrean **enpirismo** berri eta gozo bat garatuz. Askoren artean

Aztertu nahiko zenukeen eduki osoari ihes egiten utziko liokete; zuen **enpirismo** zuhurrari uko egin beharko zeniokete; eta, zuen gogoz kontra, ontologia eta egitura bitxi batean eroriko zinatekete. Xabier Arregi

Bi dira aprioriko justifikazioa aztertu duten filosofia nagusiak: neurrizko **enpirismoa** eta razionalismoa. zilegi da bazterkuntza hori tamalgarritzat jotzea, bazterkuntza horren ondorioz hutsik geratutako teoria-gunea berehalaxe hartu baitute **enpirismorik** inozoenaz hanpaturik dauden eta kontaketetan, estatistiketan eta nolabaiteko zentzuzkotasun batean oinarritu nahi duten hainbat ikusmoldek. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Funtsean, Aristotelesek esperientzia ulertu nahi du oinarria bilatzeko bidean, **enpirismo**-mota bat jorratuz nolabait Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **neurrizko enpirismoa** (3)

---

enpirista **1** *izond* enpirismoari dagokiona.

Irizpide **enpirista** hori hizkuntzaren esanahiaren jatorrian ezarri ohi da; azken buruan, hitz edo perpaus bat esanahiduna izango da oinarrian errealitatearekin erlazio zuzenen bat badu. Askoren artean

«Ordura arte zientzia ulertzeko modua tradizio **enpirista** positibistaren barruan kokatua zegoen, zientzia jarduera neutral bat bezala ikusten zen, mugarik gabeko baikortasun baten inguruan. Berria - Kultura

Aipatu lan **enpiristaz** gain, Aristotelesek badu helburu arau-emailea ere. Askoren artean

Oinarri **enpirista** hori dela eta, Russellek Fregeren "zentzua" baztertu nahi du. Askoren artean

Joera **enpiristaren** berriztatze bat proposatuko du, eta hori izango da bere filosofia-sistemaren funtsa. Askoren artean

Halatan ere, guk **enpiristatzat** jo arren, hizkera zientifikoak inpertinentetzat -desegokitzat, alegia- joko luke Larkinen poesia. Anjel Lertxundi

Eskuin filosofikoak, zehazkiago, tradizio filosofiko arrazionalista-**enpirista** nagusiaren ildoa defenditzen du. Berria - Kultura

• **2** *iz/izond* enpirismoaren aldekoa.

Enpiristek ziotenez, ezagutza esperientziatik sortzen da eta esperientziaren mende dago. Askoren artean

Batzuentzat, **enpirista** da, legeak behaketen orokortzez erdiesten dituelako (P.Duhem, E.Mach); beste batzuentzat razionalista platonikoa, esperientzia erdeinatuko lukeena (A.Koyré). Askoren artean

Enpirista logiko garrantzitsuenak judutarrak edo ezkertiarrak zirenez, Hitler-en garaipenarekin (1933an) Zirkuluek arazoak izan zituzten berehala. Askoren artean

Quine **enpirista** erradikala da, eta "Enpirismoaren bi dogma" (1951) artikuluan idatzi zuenez, ez du aprioriko justifikaziorik onartzen. Askoren artean

Ekarpen interesgarrienak, pentsalari **enpirista** britainiarrek egin zituzten. Askoren artean

Ni ez naiz ni eta nire gorputza, muga hori **enpirista** zikinek inposatu digute, diktadoreek inposatzen duten bezala Anarkistak aldiz pluralistagoak dira, **enpiristagoak**, eta mundua eta sentimenduak bezain eroak. Lander Garro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **enpirista britainiarrek** (3)

---

enplastatu, enplasta, enplastatzen du *ad* gai likatsuren batez basitu edo zikindu.

Gero, antzara-zirinezko orban bat **enplastatu** bertan, eta amorrua adierazteko triangelu gorri bat eta berde-zurrustada bat, behazun gora-joa eta izu kakaeragilea marrazteko. Xabier Olarra

---

enplasto ik **enplastu**.

---

enplastu *(agerraldi **1**, liburu **1**ean; ETCn **46** agerraldi; orobat **enplasto** **12** agerraldi, **6** liburu eta artikulu **1**ean; ETCn **46** agerraldi)* **1** *iz* sendagai nahastura biguna, zauriaren edo sendatu behar den gorputz zatiaren gainean itsasten dena, txaplata. ik **mantar**[1].

Eta belar batzuk ere bildu nahi nituzke gero, zolda-belar batzuk, **enplasturen** bat egiteko. Joan Mari Irigoien

Medikuak bere **enplastoak** eta bere erremedioak eskaintzen zizkion, eta barberak burua ebaki zion -zeren eta Mattinek buruan izan baitzuen kolpea-, harik eta buruko hezurra agerian jarri eta inguru hura garbitu zion arte, odol ustelik gera ez zekion. Joan Mari Irigoien

Ezin zuen hitz egin, ez eta jan edo edan ere, eta erabilitako **enplasto** eta beste sendagaiek ez zioten inolako lasaibiderik ekarri. Askoren artean

Kauterizazioa egin zioten buruko hainbat lekutan eta ebakiak zainetan, **enplastoak** jarri zizkioten eta kolirioak begietan. Askoren artean

Ezekiasi pikuz eginiko **enplastoa** ekartzeko agindu zuen Isaiasek eta zauriaren gainean ezartzeko, senda zedin. Elizen arteko biblia

Hiru egun daramatzat **enplastoak** jarrita, izotzarekin, hanturaren kontrakoak hartzen. Berria - Kirola

Zorabioa eta guzti ematen dit sendatzeko erabili dituzten baliabide guztiak gogoratze hutsarekin: izerditzea, **enplastoak**, zapi bustiak eta lehorrak bularrean, edari beroak, gargarak egitea, iodo igurtziak, atsedena, bururdi termikoa, ur berozko poltsak, limoi zukua eta termometroa bi orduz behin. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Ekarriko zuen kexa eta **enplastoa** franko: Urtarrila bero, zinkurinak gero. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Auskalo zer-nolako laguntza espero ote zuen handik, belar-**enplasto** edo sorginkeriaren bat seguruena, nik al dakit. bihotza zaindu behar zuela, eta bularrean azafrai-**enplastoak** jartzeko eta baleriana-ura hartzeko. Joxe Austin Arrieta

---

enplazamendu *iz* politika munduan, norbaiti zerbait egin dezan eskatu.

Jose Maria Aznarrek Espainiako Gobernua eskuratu berri zuenean, ETAk, astebeteko ekintzen etenaldiaz lagundurik, **enplazamendua** egin zion Alternatiba Demokratikoaren inguruan. Berria - Euskal Herria

Zuzenbideko profesionalengana zein abokatuen elkargo eta taldeengana joko dutela iragarri du, egoeraren berri eman eta eragileei **enplazamendua** egiteko. Berria - Euskal Herria

Ildo horretan, **enplazamendua** igorri zion Espainiako Gobernuari, baita Frantziakoari ere: «Bide demokratikoen aldeko apustua behingoz egin dezatela». Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzak uste du ETA dela orain publikoki Batasunak egindako proposamenari edo **enplazamenduari** erantzun behar diona. Berria - Harian

Enplazamendua luzatu nahi diegu Ibarretxeren plana babesten duten eragile politikoei gatazkaren konponbideari eta orube demokratikoaren eraikuntzari lehentasuna eman diezaioten. Berria - Euskal Herria

---

enpleatu ik **enplegatu**[1].

---

enpleatueria ik **enplegatueria**.

enpl *(corpusean **enpleatueria** soilik) iz ipar* enplegatuen multzoa.

Batzuen arabera, lehengo **enpleatueria** eta kargudunek beren posta salbatu nahi ukan dutela, besteentzat aldiz, eta hango bereko nazionalista batzueri pentsatzen dugu, bereziki Colonnaren arrastatzearen ondotik. Herria

---

enplegatu[1], enplega, enplegatzen *(orobat **enpleatu**)* **1** du *ad* erabili; zerbait helburu jakin batean erabilarazi.

Ongi nekien nik nola **enplegatzen** zuen denbora. Joxan Elosegi

Beren ohoinkeriaren fruitua karitatezko edo miserikordiazko obretan **enplegatzen** zutela. Joan Mari Irigoien

Hainbeste diru **enplegatu** hain urrutira bidaiatzeko, zertarako? Jesus Mari Mendizabal

Zeren Konpainiak baitzuen kontu haietan jende aditurik eta ezin prestuagorik, Jainkoaren zerbitzari leialak guztiak, jauregia modurik onenean **enplega** zezaketenak, Jainkoaren jainkozko loriagatik. Joan Mari Irigoien

"Burdina duk hemen etorkizuna, ez lurra!" Eta, etxeko ondasunak bertze molde hartan erabiltzen eta **enplegatzen** zituela, Laiotzako ola erosi zian. Joan Mari Irigoien

Estrabonek jakin zuen Egipton ehun eta hogei itsasontzi **enplegatzen** zituztela bertan; merkataritza hark diru hutsez irauten zuen. Iñaki Iñurrieta

Merke saltzeko egindako purtzileria haietan **enplegatzen** zuen bere sormena. Iñaki Iñurrieta

2 da/du *ad* enplegua eman edo hartu.

Gaur egun Hannoverko meategiek ez dituzte garai hartan Espainiako meategietan **enplegatzen** ziren gizonen laurdenak. Iñaki Iñurrieta

Kanpora botako gaitik, Charlie; eta, zuek gerrara joan ezean, ez gaitik berriro **enplegatuko** ez zuen ama ez ni. Mirentxu Larrañaga

Galdegin iezaiezu euskal nagusiei zergatik ez gaituzten **enplegatzen**. Berria - Harian

Estatu nagusian daude; milaka lagun **enplegatzen** dituzte bertan, eta hauek gehiegizko diren artikuluak kontsumitzen dituzte. Iñaki Iñurrieta

Enpresak, 458 langile **enplegatzen** ditu. Berria - Ekonomia

17 hektareko landa bat Costa Rican erosirik eta langile talde bat **enplegatuz** gero, Peigna New York hirira joan zen bere artea osoki bizitzera. Berria - Kultura

Lantegi gutxi izango zen bailara osoan, horrenbeste lagun **enplegatzen** zuenik. Xabier Mendiguren Elizegi

Medikuntza teknologia bat izango da, baina ingeniariak **enplegatzen** dituzten beste teknologia edo industrien antzik ez du. Irene Aldasoro

Haien haurrek ere tipitarik ikas dezaten zer den sufrimendua, harik eta, sufrimenduari sufrimendua eratxikiz, sei-zazpi urteko direnean, Cumanáko perla-saltzaile lagun bati igortzen dizkiodan arte, dohainik, hark **enplega** ditzan perla-bilatzaile gisa han edo hemen. Joan Mari Irigoien

Bizibidea eman niezazueke eta basoko trabailuetan **enplega** zuetarik hainbat". Joan Mari Irigoien

Zeren haren asmoa misionearen ondoan zeuden etxalde haietarik batean **enplegatzea** baitzen. Joan Mari Irigoien

22 eta 35 urte bitarteko emakumea, zerbitzuen sektorean **enplegatutakoa**. Berria - Euskal Herria

Itsasontzia egiten **enplegatutakoak**, aparailu eta janarien hornitzaileak, horiexek omen dira arrantza horretan interes handiena dutenak. Iñaki Iñurrieta

Bernard jaunak, edo estatuak **enplegatzen** duen beste bankariren batek, bere letrak proposatu ditu Holandara, eta egungo kanbioan baino sos-erdi bat, bi, hiru gehiagotan eman ditu. Iñaki Iñurrieta

Medikuntza teknologia bat izango da, baina ingeniariak **enplegatzen** dituzten beste teknologia edo industrien antzik ez du. Irene Aldasoro

3 (izenondo gisa)

Gehiago kontsumituko da, gauza gehiago izango dira arteak lantzeko, gizon **enplegatu** gehiago, boterea lortzeko bitarteko gehiago. Iñaki Iñurrieta

Irribarre egin du hoteleko neska **enplegatuak**. Berria - Kirola

4 arduratu.

Ongiaren eta gaizkiaren arazoak, berak hala kontatzen digu, hamahiru urte zuenerako **enplegatzen** zuen jada Nietzsche mutikoa. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batean enplegatua (3); **enplegaturik zegoen** (3); **enplegatzen ditu** (6); **enplegatzen zuen** (5); **eta enplegatu** (8); **lagun enplegatzen** (6); **lagun enplegatzen ditu** (3); **langile enplegatzen** (6)

---

enplegatu[2] **1** *iz* bulego lanean edo kidekoetan ari den soldatapekoa.

Sei langile aritzen dira bertan, kutxazaina, kontabilitateburua, beste bi **enplegatu**, kontabilitateko neska bat eta zaintzaile bat. Xabier Olarra

Kadrek 2.800 euro eskuratu dute, arteko ofiziotakoek 1651 euro, langile kalifikatuek 1.224 euro, **enplegatuek** 1.090 euro eta azkenik, langile xoilek 947 euro hilabetean. Herria

Antoñito Casares ere aurkeztu zion, **enplegatua** eta kazetaria, emakumezkoen artean proportzio ona zuen gizona. Josu Zabaleta

Deputatu hura kanpalekuko bulego politikoan **enplegatua** zen. Marzel Etxehandi

Erdi mailako funtzionarioa edo bulego bateko **enplegatua**. Aingeru Epaltza

Nagusien eta **enplegatuen** artean eta bezeroen aurka. Juan Garzia

Enplegatuak iristen ziren beren kontu liburuekin. Karlos Zabala

- **Enplegatu** horiek guztiek bankuan lan egiten dute, ezta? Xabier Olarra

Agentziako **enplegatu** guztiek zuten giltza bulegora sartzeko. Joxemari Iturralde

-Zuk hartu nahi zenukeen treina ez da ibiltzen igandeetan -erran zidan segidan burdinbideetako **enplegatu** batek. Janbattitt Dirassar

Gau hartan bertan hoteleko **enplegatuekin** hitz eginen zuen kontu hari buruz. Alberto Ladron Arana

Ate bakoitzean, kapelarik gabeko **enplegatu** batzuek, idazluma belarrian, begiz jarraitzen zioten, aspertuak, nonbait. Karlos Zabala

Enplegatu horren zerbitzu orriak ez dauka ezer bere aldetik asmo txarrik duenik susmarazteko. Xabier Olarra

Beste bat egokitu zitzaion senargai, morroi jator bat, gris-gris eta arrunt-arrunta, Bulego Teknikoko **enplegatua**. Juan Garzia

Inspektoreak itxarongelaraino lagundu zuen, eta maila goragoko **enplegatu** bati hots egitera joan zen. Karlos Zabala

Enplegatuak Bibliaren hirugarren txatala telegrafiatzetik bukatu zuenean. Karlos Zabala

-Hamar kopek hitzeko, jauna -esan zion **enplegatuak**, mezua hartzen ziola. Karlos Zabala

Enplegatu askok beren baratze koxkorra zuten, bulego-etxe karratuaren inguru-jiran. Juan Garzia

Hegoafrika da herri zigortuenetako bat: 25 eta 40 urteren arteko **enplegatuen** herena gaixorik dago. Pello Salaburu

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Morrosko sendoek arrautza kaxak, gazta otarreak, gurin saskiak jaso eta enkantearen pabiloira zeramatzaten, non **enplegatu** txanodun batzuek oharrak hartzen baitzituzten beren koadernoetan, gasaren argipean. Karlos Zabala

Goseak jotako jendeak, **enplegatu** apalek, sukarrez dardarka zeuden emakumeek soka luzea osatzen zuten txandaren zain. Karlos Zabala

Negozio gizonak eta funtzionarioak elkarren ondoan zebiltzan; behartsu piurako **enplegatu** xumeei ukondoez ukitzen, topo egiten, lekuz aldarazten ere uzten zieten. Monika Etxebarria

-Gizon hori, oso oker ez banaiz, **enplegatu** arrunt bat da. Xabier Olarra

Bankura itzulirik, **enplegatu** berriek orgatilak txukun paratu zituzten. Xabier Olarra

Bidaltzeko mezurik ez zuela erantzun behar zion Mikel Strogoffek **enplegatu** bitxi hari, ogia eta ura besterik ez zuela nahi. Karlos Zabala

Gizon hau sektore pribatuko **enplegatu** gazte bat da. Berria - Mundua

Baina **enplegatu** sorgorrak zera esan dio betiko lasaitasunez: [...]. Karlos Zabala

Hor aurkitzen ziren: gure kontseilari Auroy jauna, jaun erretora, jandarmeria, herriko **enplegatu** guziak, herriko elkarteetako lehendakariak, gure eskoletako erakasle buruak, herrian zenbeit zerbitzutan axolatzen diren arduradunak. Herria

Memento batez, filipindar **enplegatu** batek atea ireki zuen fotokopia baten bila etortzeko. Ramuntxo Etxeberri

Ez zuela uste trenbideetako **enplegatuek** errurik zutenik. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxeko biztanleria iraunkorra, berriz, hiriko **enplegatu**-jendeak osatzen zuen. Irene Aldasoro

Enplegatu-jendez kargaturiko tranbia aldapan gora tiratzen zuten zaldi otzanei begira. Irene Aldasoro

Espaloi zabaletan, **enplegatu** eta administrari jendetza bizi bizia zebilen. Ramuntxo Etxeberri

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haga txiki bati eragiten dio horretarako ardura duen udal **enplegatuak**. Felipe Juaristi

Ez zizkieten ekipajeak miatu, nahiz Pirinioen alde bateko eta besteko aduana-**enplegatuek** aginduta zeukaten bidaiari guztiekin hala jokatzea. Anjel Lertxundi

5 *enplegatu egon*

Doran jauna, gainera, ardo-merkatari katoliko handi baten bulegoan **enplegatu zegoen** hamahiru urtez, eta berria kanpora zabaltzeak lanpostua galtzea ere ekar ziezaiokeen. Irene Aldasoro

Glasgow-n zegoen bat, oihalgile baten dendan, eta Belfasteko te-salerosle baten **enplegatu zegoen** bestea. Irene Aldasoro

Power jauna, askoz ere gizon gazteagoa, Dublingo Gazteluan **zegoen enplegatu**, Irlandako Errege Polizia Sailean. Irene Aldasoro

· Aracil Galiziara joan zen, han baitzegoen **enplegatuta** haren aita. Josu Zabaleta

Ernest Crocker [...] gai zen 9.000 usain bereizteko, baina haren ahalmenak ohiz kanpokoak ziren, eta, noski, usain-aholkulari gisa **enplegaturik egon** zen urte askoan. Irene Aldasoro

Silvio legelaria zen, baina filosofia-tratatu bat idazten ari zen tipula-paperezko orri ñimiñotan eta garraio- eta aduana-enpresa batean **enplegaturik zegoen**. Juan Garzia

Hark, ordea, suprefekturan **enplegaturik** jarraitu zuen, xarmagarria iruditzen baitzitzaion herrialde hura. Karlos Zabala

Aitari laguntzen ibilia zen, herri txiki bateko denda batean **enplegatua**. Juan Garzia

ik enplegatu[2].

James Lennon-ek, lokomotorreko gidariak, esan zuen hamabost urte zeramatzala trenbide-konpainian **enplegatu**. Irene Aldasoro

Amak bazekien taberna bat zer zen, Donostiako Parte Zaharreko batean **enplegatua** egon zenez gero. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina enplegatu (3); **baten enplegatu** (3); **bi enplegatu** (4); **enplegatu bat** (7); **enplegatu batek** (7); **enplegatu izan** (4); **esan zion enplegatuak** (3); **zion enplegatuak** (4); **zion enplegatuari** (3)

---

enplegatzaile *iz* enplegua ematen duen pertsona.

Hirigune Bazterretako gazteak enplegatzera bultzatu nahian: Hilabetero diru sari berezi bat eskura dezake **enplegatzaileak** jatorri horretako gazte bat enpresan onartzeagatik. Berria - Harian

Bi urte irauten duen kontratu hori **enplegatzaileak** noiznahi hautsi dezake, motibo zehatzik gabe. Berria - Ekonomia

Haren **enplegatzaileen** artean, besteak beste, Corso Donati aipa daiteke, Beltzen buruzagi mutiria, ostera Florentziara itzulia, eta boteretsua. Juan Garzia

Ongi trebaturiko mertzenario haiek *en masse* beste aldera igaro zirenean, ez da harritzekoa beraiek sarri gai izatea koloka zegoen inperioari *coup de grâce*-a emateko; baina, hala ere, azaldu beharrean gaude zerk bultzatu ote zituen beren **enplegatzaileen** aurka jartzera. Iñaki Mendiguren

Jean-Baptiste Etxeto CFDT sindikatuko Euskal Herriko arduradunarentzat ere kontratu berri hori, kontratu berrien artean, «beldurgarriena» da: **«Enplegatzaileen** menpe gelditzeko tresna da». Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dezake enplegatzaileak (3)

---

enplegazale *iz* enplegatzailea.

Hori da egitüra bat non **enplegazale** eta langileak biltzen diren. Herria

Enplegazale taldearen adibidea. Herria

Baudéant-Urdiñarbe: **Enplegazale** taldearen experientzia, 6 lagünen artean. Herria

---

enplegu *(1.270 agerraldi, 29 liburu eta 584 artikulutan; ETCn 20.963 agerraldi)* **1** *iz* soldata baten truke egiten den lana.

Enplegu bat bilatuko nuen, horretarako bernizetara itzuli behar banuen ere. Juan Garzia

Enpleguen eta errenten sorrera. Koro Navarro

Andres **enplegu** bat lortzeko burubideak egiten ari zen, eta bien bitartean Liburutegi Nazionalera joaten zen. Josu Zabaleta

Mendebaldeko enpresek **enpleguak** aurreztera bideraturiko teknikak jartzen dituzte abian, soldata apaleko herrialdeen konkurrentziari aurre egiteko. Koro Navarro

Langune askotan **enpleguen** eraldaketa handia izan da: lanpostu tradizionalak desegin eta beste kontratu-lotura duten lanpostuak sortu dira. Iñaki Heras

Ez zen **enplegurik** gabe egon luzaroan: gurean lanpostu libre bat izan genuen bezain pronto kontratatu nuen. Iban Zaldua

Gauez beste **enplegu** bat nuen, eta aurrera gindoazen. Koro Navarro

Europako zenbait lurraldetan sarri hobe da **enplegurik** ez izatea, bertako laguntza sozialak direla medio, Europako beste zenbait herrialdetan edo AEBetan diren zenbait **enplegu** izatea baino, adibidez. Iñaki Heras

Enplegua aukeratzeko askatasuna bermatuz. Iñaki Heras

Baina beren **enplegua** gal beldur dira, abantaila handiak baitituzte bizitegia bereiz, jana hobea. Marzel Etxehandi

HERRIKOAk Euskal Herrian **enpleguak** sortzen dituzten enpresa proiektuak finantzatzen ditu. Herria

Euskal Herriko CLEFE-k gaur egun 28 lantegi dituzte lagunduak, erran nahi baita 40 bat **enplegu**. Herria

50 **enplegu** segurtatu beharrak dituzte hor zureriarentzat erabiltzen den kolaren egiteko, Landesetako zur enpresek ekai hori hurbil hurbila aurkituko dutelako. Herria

Langabezia-tasa garaiek ez ezik, kalitate urriko **enpleguak** ere eragin handia du pobreziaren hazkundean. Iñaki Heras

Enpleguen kalitateari dagokionez, sei hilabete baino gehiagoko iraupena zuten eta asteko gutxienez 20 ordukoak zituzten %72k. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herri honetan **enplegu** prekario asko dago, eta txarto dagoen makina bat lagun. Zuzenbide hori **enplegu** zibiletan aritzen ziren guztiek ezagutzen zuten garaietan. Berria - Euskal Herria

Enplegu zirtzil bat eman zioten, urtean hogeita hamar edo berrogei errublo lansari. Jose Morales

Berrogei urte ditut, txarto dauzkat giltzurrunak eta nagitasunaren mende nago; eta ez didate hori baino **enplegu** hoberik emango. Jose Morales

Harrera-herrialdean indarrean dauden lan-arauak kontuan izanik, izugarri **enplegu** txarrak hartzeko prest egoten da. Koro Navarro

Xantaia erabiltzen ere saiatu ziren **enplegu** kaskar esklabizatzaile hura onar nezan. Karlos Zabala

Enplegu finkorik gabe ere, Agerrek arrakasta handia erdietsia zuen San Zerningo nahiz San Nikolas eliz parrokietan predikari. Aingeru Epaltza

Lan sailburuak adierazi zuen kalitateko **enpleguaren** aldeko lanari eutsiko diotela. halakoa izan zen iaz sortutako soldatapeko **enpleguaren** erdia. Berria - Ekonomia

Gaston Flossek Lurralde Asanbleako presidente izan zeneko garaian «fikziozko **enpleguak**» sortu zituela aitortu zuen atzo. Berria - Mundua

Behin-behineko **enplegua** finko bihurtzeko. Berria - Ekonomia

3 ekonomia sistema batean, egiatan gertatzen eta ordaintzen den giza lanaren batura.

Ekoizpena, produktibitatea eta **enplegua** elkarrekin haziz joan ziren urteetan. Iñaki Heras

Europak kalitateko **enplegua** sortzen zuela, **enplegu** gutxi ordea. Iñaki Heras

Goi bileraren beste asmoetako bat Lisboako Agenda delakoak (2000. urtekoa) **enplegua** eta hazkundea sustatzeko duen estrategia hezurmamitzen hastea da. Berria - Mundua

Enplegua %3,7 hazi zen 2001etik 2003ra bitartean. Berria - Ekonomia

Enpresek pairatu zuten batez ere energiaren garestitzea, eta **enplegua** murriztuz erreakzionatu zuten. Koro Navarro

Paroa eta **enplegu** osoa, prezioen garestitze edo merkatzea. Iñaki Heras

Ondorioz, gerraosteko itun soziala - **enplegu** betean eta onura sozial eskuzabaletan oinarritua- hankaz gora geratu zen. Iñaki Heras

Emakumeen «erabateko **enplegua**» xede 2007rako. Berria - Ekonomia

Prezioen, mozkinen eta **enpleguaren** ezegonkortasuna kontrolatzeko. Iñaki Heras

Ezaguna denez, **enplegurik** ez izatearen kostu ekonomikoa izugarria da. Iñaki Heras

Enplegua sortu eta langabezia jaisteko. Iñaki Heras

Beretik murriztu baitziren baita aurrezte-maila, inbertsioa, produktibitatea eta **enplegua** ere. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espainiako **Enplegu** Institutuak EEKn egon beharko lukeela uste du CCOOk. Berria - Ekonomia

Irizpide horiek ez dute ezertarako balio ordea kalte- ordaineko sistemarik eta **enplegu**-bulegorik batere ez duten herrialdeetan. Koro Navarro

Landa inguruetan azpiegiturak eta zerbitzu publikoak modu egokian areagotu beharra aipatzen zuten, **enplegu** aukerekin batera, hain zuzen eremu horiek erakargarriagoak izan daitezen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aldaketa teknologikoek ondasun jakin batzuk ekoizteko behar den **enplegu** kopurua murrizten dute, bai noski. Iñaki Heras

Gremioen "lanaren merkatu" bat osatzearen kontrako erresistentzia, alegia, **enplegu**-baldintzak desauratzearen kontrakoa, ez zen XVIII. mendea arte desagertu. Koro Navarro

Baldintza hori jarri zuten greban ziren garbitzaileek **enplegu** arbitrajea onartzeko. Berria - Ekonomia

Enpresen irabazien gaineko zerga, inbertsioa eta **enplegu** sorkuntza sustatzeko. Iñaki Heras

16 eta 24 urte bitarteko gazteen **enplegu** tasa jaitsi zen bakarrik. Berria - Mundua

Ekonomia jakin bateko **enplegu** maila ekoizpen maila orokorraren arabera mugatzen dela. Iñaki Heras

Enplegu sistemak orokortzea helburua bada ere, banakako sistemen salerosketa eta eman behar duten informazioa arautuko da. Berria - Harian

Bai esku-hartze publikoan, bai **enplegu** politikan, baina Ongizate Estatuari loturiko zenbait gizarte zerbitzutan bereziki -nola ez-, gizarte babesa arrisku moralaren aldetik ere aztertu behar da. Iñaki Heras

Hegoaldeko herrialdeentzat diskriminatzaile ez den neurri bat da enpresa multinazionalei eskatzea atzerriko jardueretan beren jatorrizko herrialdeetan indarrean dauden segurtasun-, ingurumen- eta **enplegu**-neurri berak errespeta ditzatela. Koro Navarro

Enplegu espedienteak zabalduak ditu, desagertzera deituta dago ez ordea langileen batzarrak istilurik sortu gabe. Berria - Kultura

Enplegu eta ordainketa-baldintzak oso kaskarrak izaten baitira jatorrizko herrialdean. Koro Navarro

Ur-horniketa eskasak, delinkuentziak eta ustelkeriak **enplegu**-erregulazioko gastuak bikoiz ditzakete herrialde pobreetan. Berria - Gaiak

Bizkaiko **Enplegu** eta Trebakuntza diputatuaren ustez. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zortzi miliun lan-**enplegu** baluzke gobernu berriak 2003 urte huntan aurkitu nahiak, ainitz esperantza eta bere buruaz dudatzeko arrazoinak ere dauzkan lur hortan. Jon Muñoz

Regine Sallatoren lan **enplegua** ere, 2 orenez emendatu dute, 10 orenetarik 12 etarat pasatuz, hunek duelarik ikasleen garraioa segurtatzen. Herria

Azpimarratzekoa da, Japonian, industria-**enpleguaren** ehunekoak bere horretan jarraitu zuela urte horietan. Koro Navarro

Gaur egun gazte **enpleguen** erdia baino gehiago elkarteetan da. Herria

Frantses gobernuak joan den Ekainean bukaera eman dio gazte **enplegu** sistemari. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako enplegu (5); **alemaniako enplegu** (3); **arana bizkaiko enplegu** (5); **arteko enplegu** (3); **baino enplegu** (3); **bat enplegu** (4); **beste enplegu** (5); **beste enplegu bat** (4); **bizkaiko enplegu** (12); **bizkaiko enplegu eta** (11); **borloo enplegu** (4); **borloo enplegu ministroak** (3); **borloo frantziako enplegu** (4); **cne enplegu** (3); **da enplegu** (7); **dela enplegu** (5); **den enplegu** (6); **den enplegu kopurua** (3); **dituen enplegu** (4); **du enplegu** (5); **dute enplegu** (3); **edo enplegu** (5); **emakumeen enplegu** (6); **emakumeen enplegu tasa** (4)

enplegu agentzia (4); **enplegu agentziaren** (3); **enplegu arloko** (6); **enplegu asko** (4); **enplegu baldintzak** (3); **enplegu bat** (13); **enplegu baten** (3); **enplegu berri** (5); **enplegu berri sortu** (3); **enplegu berriak** (4); **enplegu berrietarako** (6); **enplegu berrietarako kontratua** (3); **enplegu berrirako** (5); **enplegu berrirako kontratua** (3); **enplegu bila** (3); **enplegu bulego** (3); **enplegu bulegoak** (3); **enplegu bulegoetan** (4); **enplegu datua** (3); **enplegu duina** (5); **enplegu egonkorra** (8); **enplegu erregulazio** (3); **enplegu erregulazioko** (5); **enplegu erregulazioko espedientea** (3); **enplegu eta** (49); **enplegu eta formakuntza** (4); **enplegu eta gizarte** (6); **enplegu eta prestakuntza** (6); **enplegu eta trebakuntza** (9); **enplegu euskal** (3); **enplegu euskal herriarendako** (3); **enplegu galdu** (3); **enplegu gehiago** (13); **enplegu gehiago sortu** (8); **enplegu gutxiago** (4); **enplegu gutxiago sortu** (3); **enplegu guztia** (3); **enplegu hori** (4); **enplegu idazkari** (3); **enplegu izanen** (3); **enplegu kopurua** (4); **enplegu maila** (5); **enplegu ministroak** (5); **enplegu osoa** (6); **enplegu osoko** (4); **enplegu plana** (7); **enplegu planak** (7); **enplegu planaren** (5); **enplegu planean** (3); **enplegu politika** (11); **enplegu politika aktiboak** (3); **enplegu politikak** (11); **enplegu politikei** (3); **enplegu politiken** (5); **enplegu publikorako** (3); **enplegu sailak** (3); **enplegu sistemak** (6); **enplegu sorkuntza** (6); **enplegu sortu** (7); **enplegu tasa** (14); **enplegu zerbitzuak** (5)

erakunde arteko enplegu (3); **espainiako enplegu** (6); **eta enplegu** (48); **eta enplegu politikak** (3); **euskal enplegu** (5); **euskal enplegu zerbitzuak** (3); **euskal herrian enplegu** (3); **ez enplegu** (4); **frantziako enplegu** (4); **gazte enplegu** (12); **gazteen enplegu** (3); **herrian enplegu** (3); **lan enplegu** (3); **lehen enplegu** (3); **louis borloo enplegu** (4); **mila enplegu** (3); **sortutako enplegu** (3)

aldi baterako enplegua (3); **baterako enplegua** (3); **da enplegua** (4); **da eta enplegua** (3); **du enplegua** (4); **ekonomia eta enplegua** (4); **enplegua bermatzea** (3); **enplegua bultzatzeko** (3); **enplegua edo** (3); **enplegua erregulatzeko** (5); **enplegua erregulatzeko espedientea** (5); **enplegua eta** (24); **enplegua eta gizarteratzea** (3); **enplegua ez** (6); **enplegua izan** (3); **enplegua lortzeko** (3); **enplegua sortzea** (4); **enplegua sortzeko** (14); **enplegua sortzen** (9); **enplegua sustatu** (3); **enplegua sustatzea** (3); **enplegua sustatzeko** (15); **enplegua sustatzeko kontratua** (3); **erabateko enplegua** (3); **eta enplegua** (44); **eta enplegua sortzen** (3); **eta enplegua sustatzeko** (6); **euroren enplegua** (3); **g enplegua** (5); **gatazka eta enplegua** (3); **gazteen enplegua** (5); **kalitateko enplegua** (3)

da enpleguaren (5); **dira enpleguaren** (3); **diren enpleguak** (3); **du enpleguaren** (4); **enpleguak eta** (5); **enpleguak sortzeko** (3); **enpleguaren alde** (5); **enpleguaren aldeko** (12); **enpleguaren bilakaera** (4); **enpleguaren datuek** (3); **enpleguaren erregulaziorako** (5); **enpleguaren eta** (7); **enpleguaren euskal** (24); **enpleguaren euskal kontseilua** (13); **enpleguaren euskal kontseiluan** (4); **enpleguaren euskal kontseiluaren** (4); **enpleguaren inguruko** (4); **enpleguaren kalitatea** (9); **enpleguaren kontseilua** (7); **enpleguaren kontseiluan** (4); **enpleguaren politika** (3); **enpleguaren politika aktiboak** (3); **enpleguari buruz** (6); **enpleguari buruzko** (5); **enpleguari dagokionez** (3); **enpleguari edo** (3); **enpleguari eutsiko** (4); **enpleguen eta** (3); **enpleguko bgaeak** (4); **enplegurako eta** (6); **enplegurako eta gizarteratzeko** (5); **enplegurako kontratua** (3); **enplegurik ez** (8); **enplegurik ez izatea** (4); **enplegurik gabe** (3); **eta enpleguak** (6); **eta enpleguaren** (27); **eta enpleguari** (8); **eta enpleguen** (3); **eta enplegurako** (3); **gazte enpleguak** (3); **lehen enplegurako** (3); **lehen enplegurako kontratua** (3)

---

enpleguaniztun *izond* enplegu askokoa.

Egia da baten bat **enpleguaniztuna** dela, baina hori beste kontu bat da. Berria - Ekonomia

---

enpo *adlag* aserik.

Presoak hilzorian, eta biltegia leporaino beteta aurkitu zituen zuzendari berriak; atzeko atetik ateratzeko babarrun, patata eta bakailaoz **enpo** baitzeukaten mojek biltegia. Jokin Urain

Gero, askoz ere berantago, bere auziak mundu maila zuela ikasi zuen, mundua berea bezalakoez **enpo** zela. Jose Angel Irigaray

Minez **enpo**, ez zaidak bizi-espaziorik gelditzen. Jose Angel Irigaray

Bidea urraturik utzi dio amodio kristauari, non Jainkoak eta bere sorkariek, amodio "goitarretan" **enpo** eginak, elkar bilatzen eta gogoratzen baitute zeruko esferatan galdurik. Patziku Perurena

---

enpoildu, enpoil, enpoiltzen du *ad ipar* eralgi, xahutu, alferrik galdu.

Hauen prostesta zen Japoniaren lehenagoko furfurien kontrakoa, banderak errez enbaxadore aitzinean, eta ere heien produktuak **enpoilduz** saltegietan. Herria

Uraren begiratzeko nola nahika **enpoildu** gabe. Herria

Holako liburuttoa nun nahi balia laiteke eta berriz ekar Baionan Kantuz guzietarat, behar gabe paperrik **enpoildu** gabe. Herria

Han berean, latsa tokian, xuriketak biziki errexki egiten ziren, dutxuloa zabalik sobera denbora utzi gabe, ura debaldetan **enpoildu** gabe. Herria

---

enpokatu, enpoka, enpokatzen du *ad* ase.

Oraingo iruditeria exotiko taigabe asmaberrituan, honenbeste teknika arrotzek eta zibernetikak gure irudimena eta ingurumaria fikzioz **enpokatu** eta nahastu dutenetik, kasik ez baitu zentzurik, behialako mundu liriko eta patxadako batean bezala, ikusi makusika hasteak. Patziku Perurena

---

enpopatu, enpopa, enpopatzen du *ad* popatik eman.

Nire lukainka gorrixka zorrotik aterata, haren atzera salto egin eta **enpopatzen** saiatzen nintzenean, jesarri eta kexuz zaunkaka hasten zen. Jon Arretxe

Batzuetan neurea izaten zen porrot kolektiboaren errua; esaterako, gogor saiatu ondoren txakurremea **enpopatzen** hasi eta, nahiz eta berari gustatu, jabeak ikusten gintuenean. Jon Arretxe

---

enporio *iz* garrantzi ekonomiko handiko tokia.

1939an sortua Fabra **enporioaren** gainean, Espainiako banku nagusiak izan zituen bazkide nagusi, Euskal Herriko oligarkiarenak tartean. Iñigo Aranbarri

---

enpresa 1 *iz* ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituen merkataritza elkartea.

Enpresa hori inperio erraldoia da, oraindik ere. Txema Ramirez de la Piscina

Enpresa bateko kargu ertaina. Aingeru Epaltza

Hiru hilabete diru sarrerarik gabe pasata **enpresak** kiebra joko duen beldurra daukagu. Pako Aristi

Ekonomia arloa eta **enpresak** erakartzea ere herri elkargoari eman dioten eskumena da. Berria - Harian

Enpresek zurruntasunak alde batera utzi eta malgutasuna areagotzea dute helburu nagusi. Iñaki Heras

Nonahi murriztu ziren **enpresek** eta kapitalek ordaindu beharreko zergak, nazioarteko konkurrentzia areagotu izanaren ondorioz. Koro Navarro

Paueko Merkataritza Auzitegiak sei hilabeteko epea eman dio **enpresako** zuzendaritzari finantza egoera berrorekatzeko. Berria - Harian

Ehun eta Larru Sintetikoak SL Lodzeko **enpresako** zuzendari nagusia da Ivan. Iban Zaldua

Enpresako goi arduradunen artean egindako ikerketa. Txema Ramirez de la Piscina

Enpresako akziodun nagusia. Herria

Bigarren bahitua Lorenzo Zabala izan zen, 1972ko urtarrilean, *Precicontrol* haren **enpresako** langileak greba luze batean sarturik zeudela. Xabier Mendiguren Elizegi

Enpresako afaria zuten. Pako Aristi

Agente komertzial, **enpresetako** nagusi eta burtsako bisitari guztiak, goizeko orduetan lokala betetzen zutenak beren joan-etorri ardailatsuarekin [...] batera ez bazen bestera alde eginda zeuden. Anton Garikano

Bruno Labey Guimard **enpresaren** abokatua, baina, epaileen erabakiaren aurka agertu zen. Berria - Mundua

Eraikuntzako enpresaburuak **enpresaren** itxiera prestatzen ari dira kontratisten grebari erantzuteko. Lopez de Arana

Gremioak ezabatu ziren, nekazariak askatu, barne-trukeek zituzten muga guztiak ezereztu, banku eta finantza-sistema modernoak eraiki ziren, **enpresen** sorrera eta Mendebaldeko tekniken inportazioa-imitazioa sustatu zen. Koro Navarro

Kritika horiek oso agerian uzten dute zeinen garrantzitsua eta iraunkorra den **enpresen** nazio-lotura. ahalmen horrek beti jotzen du **enpresen** baliabideak eta ingurune logistikoa hobetzera, funtsezkoak baitira biak inbertsioak (eta, horren ondorioz, enplegua) nazio barnera erakartzeko. Koro Navarro

Filialekiko sozietateen sorrerari esker, malgutu egin zen **enpresen** egitura, haien bidez saihestu egiten baitzen jardueragune batek kiebra jo eta ondoren taldea osorik galtzeko arriskua. Koro Navarro

Enpresen arteko konpetentzia basatia da. Iban Zaldua

Enpresen arteko itun estrategikoak. Koro Navarro

Dirutza baitzuen jarria Birótarren **enpresan**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Enpresako administrazio bulegoan sartu zuten. Jon Maia

Espainiako nire **enpresako** lankide ohi batek. Alberto Ladron Arana

Soilik zuzendariarekin eta **enpresako** kontseilari-delegatuarekin erabiltzeko irribarrea. Aingeru Epaltza

Hemen, New Yorken, aberastu egin zen, burtsan eta higiezinen **enpresetan**. Koro Navarro

Vladimirren heriotzaren ondoren, **enpresaz** jabetu, kooperatiba bat osatu eta fabrika osoki eraldatu zuten langileek. Iban Zaldua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Enpresa handiek ezin dute inola ere beren lehiakideen barne-merkatua luzaroan ahaztu, denborarekin bigarren mailan geratu nahi ez badute. Koro Navarro

Gure inguruko edozein **enpresa** handi eta eredugarrik ez du besterik egiten: barneko jendea promozionatzen du, eta zuzendaritza postuetako jendea kanpotik ekarri, kontratu berezi batzuekin. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nazio mailako espezializazioak, beraz, munduko ekoizpenaren **enpresa** erraldoi pribatuen arteko konkurrentziaren mende daude. Koro Navarro

Industrialde batean kausitu nintzen, **enpresa** tiki eta ertainen metatoki. Aingeru Epaltza

Gerra bukatuta Espainian kokatu zen Weber, eta armadako kide ohi batzuekin batera salerosketako **enpresa** koskor bat sortu. Alberto Ladron Arana

On-ona zenak **enpresa** familiarrari jarraitu zion. Pako Aristi

Orduko mertzenarioak «**enpresa** militar pribatuetako» langileak bilakatu dira. Berria - Mundua

Goi-mailako chefak (Arzak, Gagnaire, Luis Aduriz, Guérard, Adriá, Berasategi, etc) hotel-katea eta elikadura alorreko **enpresa** industrial handien aholkulari izaten segituko du, hori mesedegarria baita bi alderdientzat. Edorta Agirre

Asteazkenean Windowsen segurtasun sistemak hutsuneak zituela onartu zuen **enpresa** informatikoak. Berria - Gaiak

Hau New York da eta hemen idazle batek idazle bezala lan egin dezake **enpresa** farmazeutiko batean. Harkaitz Cano

Enpresa multinazional deitzen direnak (gehiegikeriaz mintzatuz), kasurik gehien-gehienetan, atzerrian jarduten diren **enpresa** nazionalak izaten dira. Koro Navarro

Enpresa multinazional zaharra, piramide moduan antolatua. Koro Navarro

Enpresa transnazional agroalimentarioek planeta osoan barrena denetik banatzen dute. Edorta Agirre

Erkidegoko Gobernuaren eta Udalaren **enpresa** publikoetako bulegoetan. Aingeru Epaltza

Badituzte jadanik **enpresa** sustengatzaileak: Etxegintza, Irisarriko Etchart, Baigorriko Manexenea ostatua eta bertze... Herria

Enpresa desjabetuen kopuruak 1975ean jo zuen gailurra. Koro Navarro

Enpresa autogileak mozkin eta likidezia maila apalak» eskuratuko dituela. Berria - Ekonomia

Estatuak nazioarteko zuzeneko inbertsioentzat egokia izango den giroa sortzen ahalegintzen dira, aldi berean teknologia transferentziak gehitzen saiatuz, bereziki joint-venture edo **enpresa** mistoen sorrera eta atzerritar patenteen erostea bultzatuz. Koro Navarro

Horren guztiaren atzean lurren gaineko interesak eta **enpresa** eraikitzaileen kontratuak daude. Edurne Elizondo

Saria *Deaplaneta* **enpresa** banatzaileak eskuratu zuen. Berria - Kultura

EVEk gomendatu zizkigun **enpresa** instalatzaileek iruzur egin zigutelako. Berria - Euskal Herria

Enpresa lehiakideari produkzioa erosi eta desegitea. Edorta Agirre

Dagoeneko **enpresa** bazkideak dituzten eskualdeetan ere irekiko dituzte bulegoak. Berria - Ekonomia

Erran zion **enpresa** amerikar batentzat lan egiten zuela eta idazkari gazte motibatuak behar zituztela. Ramuntxo Etxeberri

Enpresa errentagarria da, eta teknologian aurreratua. Berria - Ekonomia

Eta harrigarria behintzat bada kultur globalizazioaren sustatzaileak nazioz gaindiko **enpresak** izatea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eraikuntzako **enpresa** batek ADSL lotura faltak sortzen duen frustrazioa azpimarratu du. Herria

Kuban hedatuta dauden atzerriko **enpresek** Fidel Castrori langile bakoitzeko 200 dolar ematen dizkiotela hilean, baina langileek hogeina dolar soilik jasotzen dituztela hilaren bukaeran. Pako Aristi

Kanpotiar **enpresa** dirudun askok hor zituzten beren bulegoak. Ramuntxo Etxeberri

Bertako **enpresari** batek ordaindu ditu denak. Arantxa Iturbe

Fagor-Ederlan-ek japoniar **enpresa** batekin akordioa izenpetu du. Herria

Estatubatuar **enpresen** onurarako. Koro Navarro

Txinatar **enpresa**, autoritarioa baina deszentralizatua aldi berean, familia-jakintza metatuan oinarritzen da. Koro Navarro

Karpetaz osaturiko bi zutaberen artean ageri zen Potzoloren burua, purgatorioko kontuhartzaile, **enpresa** ezinezko bateko auditore. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **enpresarial**.

Berehala frogatzen dute benetan babesten dutena euren **enpresa**-askatasuna dela eta ez besterik. Txema Ramirez de la Piscina

Enpresa-izpiritua bultzatzeari, inmigratzaileen lana gogor ustiatzeari, Tubal, Aitor eta abertzaletasuna bezalako faltsukeriak asmatzeari, [...] eta Estatutuaren bidez autodeterminatzeari ekiten diola. Iban Zaldua

Enpresaburu hasiberrien proiektuak eta, oro har, **enpresa** egitasmo iraultzaileak bultzatu nahi ditu Sustatuk. Berria - Ekonomia

Enpresa proiektu berrientzako Ekintzaile programa abian jarri du SPRIk. Berria - Ekonomia

- **Enpresa**-ikasketak egin behar ditun, ezta? Fernando Morillo

Enpresa-zientzietako irakasle den emakume gazteak egin dio galdera. Oskar Arana

Berrikuntzarik gabe, ez dago enpresaririk; **enpresa**-lorpenik gabe, ez dago irabazi kapitalistarik, ez bultzada kapitalistarik. Iñaki Mendiguren

Uraren kudeaketan, **enpresa** ikuspegitik begira, malgu jokatu behar dela esan zuen. Berria - Gaiak

Garai hartan ez nuen artean ezagutzen **enpresa**-agirien anestesia-ahalmen izugarria. Juan Garzia

Halako "holding" edo **enpresa** multzo bat izango balitz bezala. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitatea eta **enpresa** mundua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Emaitzak merkatu ahalguztidunek aurreikusi dituzten gisakoak direla bermatzeko itxuraldaketa finantzario baldarra: **enpresa**-kontuen kosmetika. Iñaki Heras

Urte Zaharreko jaietara, gabonetako askarietara, urtebetetzeetara, **enpresa** batzordeen festetara joaten zen. Josu Zabaleta

Bizkaiko Aralar-Zutik koalizioko hautagaiek Navaleko **enpresa** komiteko ordezkariekin bilera egin zuten atzo. Berria - Euskal Herria

1200 langile dituen lantegiko **enpresa** komitea CFDT sindikatak kudeatzen du. Herria

Europako Batzordea kontu ikuskaritzen eta enpresen kudeaketa hobetzeko neurri berriak prestatzen ari dela jakinarazi zuen atzo Frits Bolkestein **Enpresa** komisarioak. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuak [...] Cubiertas y Mzov, Lain eta Sacyr enpresek osatutako aldi baterako **enpresa** elkartearen esku utzi zuen Itoitz egiteko ardura. Edurne Elizondo

Handik bi egunera, arauzko **enpresa**-bideetatik, W.ren gutun bat iritsi zen. Juan Garzia

McDonalds-etik hasita, **enpresa**-jantoki eta eguneroko otordua ematen duten jatetxeetaraino, plater gutxi eskaintzen dute denek. Edorta Agirre

Bereizi beharko lirateke, jakina, e-mailen **enpresa**-erabilera eta norberarena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Loa galtzen duk, jangura galtzen duk, ultzera edo ekzema ateratzen zaik, eta pauso handi bat ematen duk behin betiko **enpresa**-neurosirantz. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Idazlea zirudiena auto-**enpresa** bateko jabea suertatzen da, bankeroa iruditzen zitzaiguna bigarren mailako futbol taldeko masajista da, eta ijitoen elkarteko ordezkari itxurako hura rock kantari bat. Pako Aristi

Tresneria-**enpresa** bateko departamentua izateko femeninoegia iruditu zaizu beti diseinua. Eider Rodriguez

Brooklyn Brewery garagardo **enpresak** babesturiko zirko underground batean lanean. Harkaitz Cano

KCNA Ipar Koreako infomazio **enpresa** ofizialak atzo esan zuenez. Berria - Mundua

Lehengoan, esaterako, informatika-**enpresa** bati egindako erreklamazioa imitatzen zuen bat iritsi zitzaidan. Iban Zaldua

Ameriketako Estatu Batuetako DTS Security zainketa **enpresarentzat** egiten zuen lan. Berria - Mundua

Hewlett-Packard konpainiak (HP) kontratua sinatu du Mandriva software **enpresarekin** Hego Amerikan software librea erabiltzen duten ordenagailuak saltzeko. Berria - Gaiak

Atezainen areatan eta jokalariek beroketak egiten dituzten hegalean [...] belar zati berriak jarri ditu Cengotita lorezaintza **enpresak**. Berria - Kirola

Nekazaritza **enpresak**, eraikuntza **enpresak**, Petrolio, Gas, Osasun, Arma eta Garraio **enpresak** Bushen alde daude gehienean. Berria - Mundua

Gobernu laborista baten azpian, zeinen programa industri **enpresen** jabetza esku pribatuetatik kentzea baitzen askatasun pertsonalean esku sartu gabe. Iñaki Mendiguren

Ez da jada halako alderik unibertsitatean oinarrizko ikerkuntza delakoan diharduen laborategi baten eta lorturiko ezagueraren aplikazio posibleez arduratzen den industria-**enpresa** baten laborategiaren artean. Juan Garzia

Lucyk erreparatu zuen furgonetak letra handi batzuk zeuzkala pintaturik elektrizitate **enpresa** baten izenarekin. Joxemari Iturralde

Garraio- eta aduana-**enpresa** batean enplegaturik zegoen. Juan Garzia

Eskuzko Pilota **Enpresen** Ligak (EPEL) oraindik ofizial egin ez badu ere, [...]. Berria - Kirola

Oihal-**enpresa** bateko arduraduna. Pablo Sastre

Soziologia ikasi eta katalogo bidezko salmenta-**enpresa** batean zebilen, zer egiten zuen oso ondo jakin gabe. Fernando Morillo

Bitartean, ez ahaztu aldaira-**enpresakoei** deitzea. Oskar Arana

Hileta-**enpresaren** auto beltzarekin batean iritsi ziren hor egoteko arrazoi profesionalik ez zutenak. Aingeru Epaltza

Maddalenek argitu zion Antton banaketa **enpresa** batean ari zela lanean. Joxemari Iturralde

Remmert garbiketa **enpresan** ari ziren biak. Pablo Sastre

Eraikina erabat hutsik zegoen ustez eta hilketa burutu zen tenorean, oroz gain profesionalen bulegoak eta merkataritza-**enpresen** egoitzak aterpetzen baititu. Aingeru Epaltza

Tamalez, biktimaren zapatetako bat besterik ez dute salbatu seguritate **enpresakoek**. Patxi Iturritegi

Aholkularitza **enpresak** lehen fasea bururaturik, apirilean publiko eginen ditu bere ondorioak. Berria - Kultura

Kultura **enpresen** etekina ez dira zenbakiak. Berria - Kultura

Arazoaldiak aurkitzen ditugu, proletalgo deserrotu eta arranguratsuak ez ezik, kolonizazio-**enpresak** ere eskala handian sortzen dituztenak. Iñaki Mendiguren

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Daewoori emandako laguntzak salatu zituzten Bruselan Anfel, Ceded eta Anie hozkailu **enpresa** elkarteek. Berria - Ekonomia

Enpresa gidaritza masterrak egiteko beka sistema bat. Berria - Euskal Herria

Administraritza eta **enpresa** kudeantza sailean 231 ikasle ditugu jaz bezala. Herria

Inportazio-esportazio **enpresa** bateko bulegari zaildu eta trebatua. Joxemari Iturralde

6 ***enpresa buru*** ik **enpresaburu**.

7 ***enpresa gizon*** *(**38** agerraldi, **6** liburu eta **19** artikulutan; ETCn **306** agerraldi; orobat **enpresagizon** **13** agerraldi, liburu **1** eta **12** artikulutan; ETCn **110** agerraldi)*

Juan Pedro Guzman **enpresa gizona** da, eta betidanik egon da futbolari lotuta. Berria - Kirola

2000ko apirilaren 6an zientzialarien mundua hankaz goiti gelditu zen, aho zabalik, aldi berean ikertzailea eta **enpresa gizona** zen Graig Venter jaunak, Celera Genomics enpresaren izenean aditzera eman zuenean giza genoma atalka identifikatua zuela. Pello Salaburu

Arimarik gabeko proiektua da, **enpresa gizonen** neurrira egindakoa. Berria - Euskal Herria

Enpresa-gizon gipuzkoar bat Magreb aldean zen esne fabrika bat muntatzen. Hasier Etxeberria

Eta Hitlerrek **enpresa-gizon** handiekin, aristokratekin eta betiko handi-mandiekin darabilen politika ez da nire kezka-iturri nagusia. Alberto Ladron Arana

Uria ere **enpresa gizon** ona izan zen. Berria - Kirola

Zer ez liketek esango gure **enpresa gizon** prestuek IUko sailburu batek gizarte soldata igotzea erabakiko balu! Iban Zaldua

Ivar Kreuger **enpresa gizon** suediar boteretsua hilik azaldu zen Parisko hotel bateko gela batean. Berria - Kultura

Agian **enpresa-gizon** bihurtuta bukatuko zituen bere egunak, Hego Ameriketako hiri lasairen batean, maitale beltzaran eztitsuz inguraturik. Alberto Ladron Arana

Berlusconik lehen ministro kargua **enpresa gizon** karguarekin partekatu ahal izateko ezarri zuen legea. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

arabako enpresa (6); **argindar enpresa** (9); **atzo enpresa** (12); **azken enpresa** (6); **azpikontratatutako enpresa** (8); **bai enpresa** (7); **baina enpresa** (15); **baita enpresa** (9); **bat enpresa** (11); **bere enpresa** (21); **beste enpresa** (77); **beste enpresa bat** (10); **beste enpresa batean** (6); **beste enpresa batek** (7); **beste enpresa batzuei** (6); **beste enpresa batzuek** (6); **bezalako enpresa** (7); **bi enpresa** (39); **bizkaiko enpresa** (7); **da enpresa** (39); **dauden enpresa** (8); **den enpresa** (18); **dio enpresa** (8); **dira enpresa** (18); **diren enpresa** (15); **ditu enpresa** (15); **ditu enpresa horrek** (6); **dituen enpresa** (31); **dituzte enpresa** (14); **dituzten enpresa** (17); **du enpresa** (41); **duen enpresa** (40); **dute enpresa** (20); **duten enpresa** (18); **edo enpresa** (23); **edozein enpresa** (10); **egiteko enpresa** (7); **ekonomia eta enpresa** (8); **energia enpresa** (9)

enpresa ari (6); **enpresa asko** (15); **enpresa askok** (21); **enpresa askoren** (6); **enpresa bakoitzak** (21); **enpresa bakoitzak bere** (7); **enpresa bakoitzaren** (6); **enpresa bakoitzeko** (9); **enpresa barneko** (13); **enpresa barruan** (9); **enpresa barruko** (6); **enpresa bat** (101); **enpresa bat baino** (6); **enpresa batean** (63); **enpresa batek** (91); **enpresa batekin** (12); **enpresa bateko** (37); **enpresa baten** (57); **enpresa baten esku** (7); **enpresa batentzat** (14); **enpresa bati** (35); **enpresa batzordea** (17); **enpresa batzordeak** (65); **enpresa batzordearekin** (6); **enpresa batzordearen** (7); **enpresa batzordeari** (6); **enpresa batzordeko** (37); **enpresa batzuei** (10); **enpresa batzuek** (21); **enpresa batzuen** (6); **enpresa batzuetan** (9); **enpresa batzuk** (13); **enpresa bera** (7); **enpresa berean** (8); **enpresa bereko** (6); **enpresa berri** (14); **enpresa berriak** (16); **enpresa berrien** (7); **enpresa buru** (15); **enpresa buruak** (6); **enpresa buruek** (6); **enpresa da** (29); **enpresa daude** (11); **enpresa edo** (16); **enpresa ere** (7); **enpresa ertain** (7); **enpresa ertain eta** (7); **enpresa eta** (123); **enpresa eta langileen** (6); **enpresa ez** (6); **enpresa gehienak** (13); **enpresa gizon** (20); **enpresa gizona** (6); **enpresa guztiek** (8); **enpresa guztietan** (10)

enpresa handi (32); **enpresa handi bat** (6); **enpresa handia** (7); **enpresa handiak** (19); **enpresa handiei** (12); **enpresa handiek** (17); **enpresa handien** (28); **enpresa handienak** (7); **enpresa handietan** (9); **enpresa hauek** (9); **enpresa honek** (8); **enpresa hori** (24); **enpresa horiek** (47); **enpresa horien** (20); **enpresa horietan** (7); **enpresa horrek** (65); **enpresa horrekin** (6); **enpresa horren** (27); **enpresa horretako** (10); **enpresa horretan** (15); **enpresa horri** (13); **enpresa itxi** (9); **enpresa ixtea** (6); **enpresa ixteko** (6); **enpresa izan** (12); **enpresa jakin** (6); **enpresa komitea** (6); **enpresa komiteak** (7); **enpresa komitearen** (6); **enpresa komiteko** (6); **enpresa militar** (6); **enpresa multinazional** (11); **enpresa multinazionalek** (13); **enpresa multinazionalen** (19); **enpresa mundua** (6); **enpresa munduan** (17); **enpresa munduko** (7); **enpresa nagusia** (7); **enpresa nagusiak** (10); **enpresa nagusiek** (8); **enpresa pribatu** (41); **enpresa pribatu batek** (10); **enpresa pribatu baten** (12); **enpresa pribatua** (7); **enpresa pribatuak** (21); **enpresa pribatuaren** (7); **enpresa pribatuei** (6); **enpresa pribatuek** (21); **enpresa pribatuen** (29); **enpresa pribatuen esku** (12); **enpresa proiektu** (8); **enpresa publiko** (19); **enpresa publikoa** (21); **enpresa publikoak** (13); **enpresa publikoen** (16); **enpresa sortu** (23); **enpresa talde** (13); **enpresa taldea** (9); **enpresa taldeak** (9); **enpresa taldearen** (9); **enpresa transnazionalen** (6); **enpresa txiki** (72); **enpresa txiki eta** (54); **enpresa txikiak** (10); **enpresa txikiek** (11); **enpresa txikietan** (7); **enpresa zigortu** (6)

enpresaz enpresa (7); **eraikuntza enpresa** (15); **ere enpresa** (9); **espainiako enpresa** (8); **eta beste enpresa** (8); **eta enpresa** (228); **europako enpresa** (6); **euskal enpresa** (26); **euskal herriko enpresa** (6); **ez enpresa** (7); **garraio enpresa** (7); **gure enpresa** (8); **hainbat enpresa** (24); **herriko enpresa** (10); **hiru enpresa** (8); **hirugarren enpresa** (6); **informatika enpresa** (9); **izeneko enpresa** (6); **kanpoko enpresa** (7); **lan enpresa** (8); **lantegiko enpresa** (6); **navaleko enpresa** (10); **navaleko enpresa**

batzordeko (6); **nazioarteko enpresa** (6); **petrolio enpresa** (15); **pilota enpresa** (8); **segurtasun enpresa** (14); **sektoreko enpresa** (11); **taldeko enpresa** (6); **telekomunikazio enpresa** (8); **tokiko enpresa** (6); **zen enpresa** (14); **zenbait enpresa** (11); **zion enpresa** (7); **zituen enpresa** (9); **zituzten enpresa** (8); **zuen enpresa** (39); **zuten enpresa** (12)

argindar enpresak (16); **asegarce enpresak** (15); **aspe enpresak** (9); **baina enpresak** (19); **baina enpresak ez** (6); **basque enpresak** (7); **bere enpresak** (16); **bi enpresak** (11); **bilboko enpresak** (6); **da enpresak** (10); **dauden enpresak** (7); **die enpresak** (8); **dio enpresak** (6); **dira enpresak** (7); **diren enpresak** (23); **ditu enpresak** (20); **dituen enpresak** (12); **dituzten enpresak** (13); **du enpresak** (53); **duen enpresak** (24); **dute enpresak** (6); **duten enpresak** (17); **eibarko enpresak** (14); **energia enpresak** (7); **enpresak ateak** (8); **enpresak atzo** (7); **enpresak berak** (21); **enpresak bere** (32); **enpresak beste** (14); **enpresak bi** (9); **enpresak dio** (6); **enpresak dira** (12); **enpresak dituen** (10); **enpresak egin** (15); **enpresak egindako** (24); **enpresak eginiko** (6); **enpresak erakartzeko** (6); **enpresak ere** (21); **enpresak esan** (7); **enpresak eta** (75); **enpresak ez** (83); **enpresak ez du** (22); **enpresak ez duela** (6); **enpresak ez zuen** (10); **enpresak hartu** (8); **enpresak izango** (6); **enpresak jakinarazi** (11); **enpresak kaleratu** (8); **enpresak kudeatzen** (7); **enpresak langileei** (6); **enpresak nahi** (7); **enpresak sortu** (7); **enpresak sortzeko** (8); **eraikuntza enpresak** (17); **eta enpresak** (74); **euskal enpresak** (15); **eusko basque enpresak** (6); **ez enpresak** (7); **fcc enpresak** (9); **frontis enpresak** (13); **garabi enpresak** (19); **garraio enpresak** (11); **gas natural enpresak** (6); **hainbat enpresak** (9); **higiezinen enpresak** (6); **kontserba enpresak** (8); **kudeatzen duen enpresak** (6); **natural enpresak** (6); **petrolio enpresak** (9); **sa enpresak** (6); **zenbait enpresak** (6); **zituen enpresak** (11); **zituzten enpresak** (7); **zuen enpresak** (35)

aspe enpresako (7); **bere enpresako** (6); **caballito enpresako** (35); **den enpresako** (8); **du enpresako** (8); **enpresako administrazio** (8); **enpresako arduradun** (8); **enpresako arduradunak** (6); **enpresako arduradunek** (22); **enpresako batzordeak** (7); **enpresako beste** (7); **enpresako bi** (9); **enpresako buru** (8); **enpresako burua** (6); **enpresako buruak** (10); **enpresako eta** (6); **enpresako kide** (8); **enpresako langile** (24); **enpresako langileak** (21); **enpresako langileek** (40); **enpresako langileek greba** (6); **enpresako langileen** (27); **enpresako langileen batzordeak** (6); **enpresako ordezkariek** (6); **enpresako presidente** (6); **enpresako presidenteak** (7); **enpresako zuzendari** (18); **enpresako zuzendaria** (8); **enpresako zuzendaritza** (8); **enpresako zuzendaritzak** (35); **enpresako zuzendaritzak ez** (6); **enpresako zuzendaritzari** (6); **eta enpresako** (18); **fcc enpresako** (15); **ferroser enpresako** (8); **frontis enpresako** (10); **garraio enpresako** (6); **noi enpresako** (6); **petrolio enpresako** (8); **ruggeberg caballito enpresako** (25); **zuen enpresako** (12)

argindar enpresaren (7); **caballito enpresan** (8); **da enpresaren** (8); **dio enpresari** (11); **diote enpresari** (9); **dira enpresaren** (6); **du enpresaren** (8); **duen enpresaren** (6); **duen enpresari** (7); **dute enpresaren** (7); **enpresan bertan** (8); **enpresan eta** (7); **enpresan lan** (8); **enpresaren alde** (9); **enpresaren arabera** (24); **enpresaren artean** (7); **enpresaren aurka** (10); **enpresaren aurkako** (13); **enpresaren aurrean** (9); **enpresaren azken** (7); **enpresaren bat** (9); **enpresaren bideragarritasuna** (7); **enpresaren bidez** (6); **enpresaren egoera** (6); **enpresaren egoitza** (7); **enpresaren eskaintza** (9); **enpresaren esku** (17); **enpresaren esku utzi** (7); **enpresaren eta** (25); **enpresaren etorkizuna** (8); **enpresaren inguruko** (6); **enpresaren izena** (11); **enpresaren jarduera** (7); **enpresaren jarrera** (11); **enpresaren kontra** (7); **enpresaren kontrako** (9); **enpresari buruzko** (6); **enpresari eman** (7); **enpresari eta** (11); **enpresaz enpresa** (7); **eta enpresaren** (49); **eta enpresari** (10); **frontis enpresarekin** (6); **hainbat enpresaren** (7); **parmalat enpresaren** (6); **ruggeberg caballito enpresan** (8); **zion enpresari** (7)

abeac garabi enpresen (6); **alorreko enpresek** (6); **atzerriko enpresek** (9); **baterako lan enpresen** (6); **beste enpresetan** (6); **bi enpresek** (22); **bi enpresen** (21); **da enpresen** (12); **dauden enpresen** (8); **diren enpresek** (7); **diren enpresen** (20); **dituzte enpresek** (12); **dituzten enpresei** (10); **dituzten enpresek** (15); **dituzten enpresen** (11); **dituzten enpresetan** (6); **du enpresen** (8); **dute enpresek** (21); **duten enpresei** (12); **duten enpresek** (12); **duten enpresen** (20); **edo enpresen** (7); **enpresei emandako** (6); **enpresei eta** (16); **enpresek edo** (6); **enpresek egindako** (7); **enpresek egiten** (8); **enpresek ere** (16); **enpresek eta** (31); **enpresek euren** (6); **enpresek ez** (23); **enpresek ez dute** (6); **enpresekin eta** (6); **enpresen artean** (34); **enpresen arteko** (54); **enpresen bat** (6); **enpresen egoera** (7); **enpresen elkarteak** (9); **enpresen elkarteko** (7); **enpresen emaitzak** (6); **enpresen esku** (14); **enpresen eta** (31); **enpresen inbertsioa** (6); **enpresen kasuan** (8); **enpresen kopurua** (8); **enpresen lehiakortasuna** (6); **enpresen ligak** (24); **enpresen ligak epel** (8); **enpresen mozkinen** (6); **enpresen zerrenda** (7); **enpresetako langileak** (7); **enpresetako langileen** (6); **enpresetako ordezkariak** (8); **enpresetako ordezkariek** (6); **enpresetan egiten** (8); **enpresetan eta** (8); **eskuzko pilota enpresen** (13); **eta enpresei** (20); **eta enpresek** (37); **eta enpresen** (65); **eta enpresen arteko** (9); **eta enpresetako** (6); **eta enpresetan** (13); **euskal enpresei** (7); **euskal enpresek** (15); **euskal enpresen** (16); **euskal herriko enpresek** (6); **euskal herriko enpresen** (7); **garabi enpresek** (39); **garabi enpresen** (27); **garabi enpresetako** (6); **gipuzkoako enpresen** (9); **hainbat enpresen** (7); **herriko enpresek** (7); **herriko enpresen** (7); **komunikazio enpresek** (6); **lan enpresen** (7); **ontzi enpresen** (7); **petrolio enpresei** (6); **pilota enpresen** (17); **pilota enpresen ligak** (12); **zenbait enpresen** (6); **zuten enpresek** (6)

---

enpresaburu *(**1001** agerraldi, **13** liburu eta **532** artikulutan; ETCn **10.855** agerraldi; orobat **enpresa buru** **41** agerraldi, liburu **1** eta **31** artikulutan; ETCn **197** agerraldi)* **1** *iz* enpresa baten burua. ik **enpresari**.

Arazo psikologikoak dituzten gizonentzako zentro batean, Georgi Lulchev psikiatra, neurologoa, administraria, **enpresaburua** eta zuzendaria da, dena batera. Berria - Kultura

Espainiako **enpresaburuen** burua izan jarraitzeko bidea libre du Jose Maria Cuevasek. Berria - Ekonomia

Lazpiur Taldea holding-aren **enpresaburua** da. Herria

Normala den bezala, **enpresaburuek** beren enpresetan lana ongi egiteko moduko jende prestatua nahi dute eta horixe da unibertsitateari eskatzen diotena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Enpresaburuek pagamendu osoa hitzemana diete azaroaren 15-erako. Herria

Kortabarriak, gainera, deitoratu zuen **enpresaburuek** «lehiakorragoak izateko premia» erabiltzen dutela «euren handinahikeria» mozorrotzeko. Berria - Ekonomia

Enpresaburuek izandako irabaziak modu bidezkoan banatzeko» eskatu zuen. Berria - Ekonomia

Enpresaburuaren emaztea, baina, bahitu eta 24 ordura utzi zuten aske Burgosen. Berria - Euskal Herria

ELA, LAB, ESK, CCOO, Hiru, EILAS eta EHNE sindikatuek **enpresaburuei** lantokietan euskararen normalizazio planak abiatzeko eta langileei euskararekiko konpromisoak hartzeko eskatu zieten atzo. Berria - Euskal Herria

Bistan da **enpresaburuen** nahiak eta unibertsitateko irakasle-ikertzaileenak ez datozela beti bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Enpresaburuen eta admistrazioaren utzikeria. Berria - Ekonomia

Azpijokoa **enpresaburuen** eta profesionalen jardueran dago, batez ere. Berria - Ekonomia

Ekonomia hazkundearen estrategia faktore dira **enpresaburuak**, eta, beraz, haiek abiarazitako zaharberritze inbertsioek mugatzen dituzte zikloak. Iñaki Heras

Arabako Emakume Profesional eta **Enpresaburuen** Elkarteari buruzko erreportajea. Iñigo Aranbarri

Etorkizun politiko eta ekonomikoaz jardunaldia egin du **Enpresaburuen** Zirkuluak. Berria - Ekonomia

Euskal **Enpresaburuen** Elkargoaren ordezkatze maila zalantzan jarri du EAJk. horrek guztiak agerian uzten ditu **enpresaburuen** ordezkaritzak negoziazio honetan egin dituen ahalegin izugarriak Jose Manuel Aiesa CEN Nafarroako **Enpresaburuen** Konfederazioko presidentea harrituta agertu zen atzo, Azkoyeni Garzon egiten ari zaion ikerketaren berri jakin zuenean. Berria - Harian

Langileen soldatak benetako inflazioaren azpitik igo dira, eta **enpresaburuen** mozkinak, berriz, %8 handitu dira. Berria - Ekonomia

Baina **enpresaburuen** xedea beste bat da: hezkuntzaz baliatuz ahalik eta irabazi gehien eskuratzea. Berria - Gaiak

Khodorkovski **enpresaburuaren** aurkako auziak kutsu politikoa duela onartu du ministro batek. Berria - Mundua

Humala nazionalistak nekazari eta indigena txiroen sostengua jaso du; zentro-ezkerreko hautagai Garciak, aldiz, **enpresaburuena**. Berria - Mundua

Estatuburu zein **enpresaburu**, hainbat buru baina aburu bakarra dago han: xoxa. Joxerra Garzia

Lanbidea: **Enpresaburua**. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Santiago Etxarreni 2005eko **enpresaburu** gaztearen saria. Berria - Ekonomia

Enpresaburu aberatsa eta aseezina zen. Berria - Kirola

Enpresaburu hasiberrien proiektuak eta, oro har, enpresa egitasmo iraultzaileak bultzatu nahi ditu Sustatuk. Berria - Ekonomia

Baina **«enpresaburu** diruzaleei» ez ezik, Administrazioei egotzi zien ardura. Berria - Ekonomia

Galiziak beren lana era duinean egingo duten agintariak behar ditu, oposizio ona, **enpresaburu** onak, artista onak. Berria - Kultura

Santiago Etxarreni 2005eko **enpresaburu** gaztearen saria. Berria - Ekonomia

Alexei Fedorychev **enpresaburu** errusiarrak 113 milioi euro inbertituko ditu Moskuko Dinamo taldean. Berria - Kirola

Beste zenbait **enpresaburu** jeltzaleri jabetzak kendu zizkieten garaian. Xabier Mendiguren Elizegi

Harrituta geratzeko modukoa da nolako indarra duen **enpresaburu** argazki-bildumazale bakar batek Donostia osoa bere gustukoa den zerbaiten inguruan dantzan jarri duenean. Berria - Kultura

2.340 gonbidatutatik 735 mundu osotik etorritako **enpresaburuak** izango dira. Berria - Ekonomia

Euskal **enpresaburuek**, langileekin batera, euskal gizartea hobetzen eta garatzen ekarpen handia egin dutela ziurtzat du alderdi jeltzaleak. Berria - Euskal Herria

Sari nagusia, Urteko **Enpresaburuarena**, Ricardo Benedi **enpresaburu** bizkaitarrak jaso zuen. Berria - Ekonomia

Nazioarteko 270 politikari eta **enpresaburu** daude nahastuta. Berria - Mundua

Bigarren **enpresaburu** hori Italiako lehen ministroa da egun. Berria - Mundua

Dioenez, oposizioko **enpresaburu**, gotzain eta komunikabideetako zenbait buruzagirengan jarrera aldaketa nabaritu du. Berria - Mundua

Eraikuntzako **enpresaburuek**, aldiz, konfiantza zertxobait handitu dela adierazi dute. Berria - Ekonomia

Irratigintzako **enpresaburua** da El Salvadorreko presidente ziurrenera bilakatzekoa den gizona. Berria - Mundua

Arrezifeak suntsitu dituztenak ez dira lekuko **enpresaburuak**. Berria - Harian

Azokaren «sasoi onaren erakusle» da kanpoko **enpresaburuen** parte-hartzea. Berria - Ekonomia

Bizkaiko Emakumezko **Enpresaburuen** eta Zuzendarien Elkarteak (AED) negozio bidaia prestatu du Hego Koreara. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enpresaburu lanetan hasi zara orain? Berria - Kirola

Estatu-aparatu eraginkorrak osatuz edo berreginez, eta **enpresaburu**-klase nazional bat sustatuz. Koro Navarro

Orain, ordea, **enpresaburu** itxurako emakume potolatxo bihurtu da. Lopez de Arana

ELA eta LAB sindikatuek, edo Confebask **enpresaburu** elkarteak egitasmoa oinarritzeko argudioak. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garai hartan euskal familia **enpresaburu** haiek erregimen frankistaren libertate faltaz aprobetxatzen ziren nahi zuten guztia esplotatzeko. Berria - Kultura

Mikhail Khodorkovski petrolio **enpresaburua** kartzelaratu izana gaitzetsi zuen lehen ministroak. Berria - Mundua

Predikaria, ehorztetxe **enpresaburua** eta abeslaria, Solomon Burkek Mendizorrotzan aurkeztuko du gaur bere burua. Berria - Kultura

5 (izenondo gisa)

Garai hartan euskal familia **enpresaburu** haiek erregimen frankistaren libertate faltaz aprobetxatzen ziren nahi zuten guztia esplotatzeko. Berria - Kultura

Euskal Herriko eta Espainiako emakume **enpresaburuek**. Berria - Ekonomia

Emakume **enpresaburuen** elkarteak, AMPEAk, lau hautagaitza bultzatu zituen. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste enpresaburu (3); **confebask enpresaburu** (3); **die enpresaburuei** (8); **diete enpresaburuei** (5); **dira enpresaburuak** (6); **dituzten enpresaburuak** (3); **duten enpresaburuak** (4); **enpresaburu asko** (3); **enpresaburu askok** (6); **enpresaburu bat** (6); **enpresaburu batek** (4); **enpresaburu baten** (6); **enpresaburu baten emaztearen** (4); **enpresaburu batzuek** (3); **enpresaburu elkarteak** (3); **enpresaburu eta** (12); **enpresaburu gisa** (3); **enpresaburu horiek** (3); **enpresaburua da** (7); **enpresaburua eta** (4); **enpresaburuak ere** (6); **enpresaburuak eta** (7); **enpresaburuaren emaztea** (4); **eta enpresaburu** (19); **eta enpresaburua** (3); **eta enpresaburuak** (12); **ez dira enpresaburuak** (3); **lehen urtean enpresaburuari** (3); **nafarroako enpresaburu** (3); **urtean enpresaburuari** (3)

adegi gipuzkoako enpresaburuen (4); **aiesa nafarroako enpresaburuen** (3); **alemaniako enpresaburuek** (4); **alemaniako enpresaburuen** (13); **alemaniako enpresaburuen konfiantza** (7); **arabako enpresaburuen** (21); **arabako enpresaburuen elkarteak** (10); **arabako enpresaburuen elkarteko** (4); **arautzea enpresaburuen** (3); **baina enpresaburuek** (3); **confebask euskal enpresaburuen** (3); **dela enpresaburuen** (3); **dituzte enpresaburuek** (5); **dute enpresaburuek** (5); **eaeko enpresaburuen** (6); **eaeko enpresaburuen elkarteak** (3); **enpresaburuei elkartasuna** (7); **enpresaburuei eskatu** (3); **enpresaburuei eta** (6); **enpresaburuei eta langileei** (3); **enpresaburuei ez** (3); **enpresaburuek behin** (3); **enpresaburuek ere** (3); **enpresaburuek eta** (6); **enpresaburuek etaren** (3); **enpresaburuek euren** (3); **enpresaburuek ez** (9); **enpresaburuek ez dituzte** (5); **enpresaburuek ez dute** (3); **enpresaburuek lan** (3); **enpresaburuen alde** (3); **enpresaburuen artean** (5); **enpresaburuen artean ere** (3); **enpresaburuen arteko** (5); **enpresaburuen aurkako** (3); **enpresaburuen aurrean** (3); **enpresaburuen diru** (4); **enpresaburuen egoera** (3); **enpresaburuen elkargoak** (3); **enpresaburuen elkarteak** (31); **enpresaburuen elkarteak eta** (4); **enpresaburuen elkartearen** (7); **enpresaburuen elkarteari** (5); **enpresaburuen elkarteek** (8); **enpresaburuen elkarteko** (14); **enpresaburuen elkarteko presidente** (3); **enpresaburuen elkarteko presidenteak** (3); **enpresaburuen esku** (4); **enpresaburuen eta** (16); **enpresaburuen eta langileen** (3); **enpresaburuen eta sindikatuen** (3); **enpresaburuen federazioak** (5); **enpresaburuen konfederazioak** (4); **enpresaburuen konfiantza** (10); **enpresaburuen konfiantza neurtzen** (3); **enpresaburuen zirkuluak** (5); **enpresaburuen zirkuluko** (3); **eskatu diete enpresaburuei** (3); **eskatu zien enpresaburuei** (4); **eta enpresaburuei** (10); **eta enpresaburuek** (22); **euskal enpresaburuei** (4); **euskal enpresaburuek** (3); **nafarroako enpresaburuek** (5); **sindikatuek eta enpresaburuek** (5); **zien enpresaburuei** (12); **zieten enpresaburuei** (3)

du enpresaburuentzat (3); **errioxako enpresaburuen** (4); **errioxako enpresaburuen federazioak** (4); **eta enpresaburuen** (29); **eta enpresaburuen arteko** (4); **eta nafarroako enpresaburuen** (3); **euskal enpresaburuen** (14); **euskal enpresaburuen konfederazioak** (4); **ezta enpresaburuen** (3); **gipuzkoako enpresaburuen** (11); **gipuzkoako enpresaburuen elkarteak** (4); **gipuzkoako enpresaburuen elkartearen** (3); **hainbat enpresaburuk** (4); **nafarroako enpresaburuen** (9); **nafarroako enpresaburuen elkarteko** (4); **sea arabako enpresaburuen** (5); **sindikatuen eta enpresaburuen** (3); **zenbait enpresaburuk** (3); **zuten enpresaburuen** (5)

enpresa buru (15); **enpresa burua** (3); **enpresa buruak** (6); **enpresa buruek** (6); **enpresa buruen** (4)

---

enpresagintza *iz* enpresak sortzea.

Gobernua utzita, **enpresagintzan** dihardu Reynoldsek gaur egun. Berria - Mundua

---

enpresagizon ik **enpresa 7**.

---

enpresagune *(orobat **enpresa gune**) iz* enpresentzako gunea.

Hendaian, **enpresagune** berri bat eraikiko da lehengo autoportuaren eremuan. Herria

Euskal Herriko Merkatal Ganbara kanpotik enpresak honat tirriatzen laguntzeko 94 000 euro; Ortzaizeko **enpresa gunearen** abiatzen laguntzeko 84 000 euro, Maxsea sozietatea itsas gida berri bat pikoan emaiten laguntzeko 60 000 euro. Herria

Nabarmentzekoak dira Saltuenean eraiki nahi duten **enpresa gunea** eta Udondon egin nahi duten bulebarra. Berria - Kultura

---

enpresakide *izond* enpresa berekoa.

Badaki Titin III.a eta Goñi III.a **enpresakideak** igandean jokatzearen aldekoak direla, eta Lasa III.a bikotekidea ere bai. Berria - Kirola

Pubisean egindako ebakuntza erabat gaindituta, herenegun hasi zen Mikel Unanue bere **enpresakideekin** entrenatzen, Gasteizen. Berria - Kirola

Litekeena da Jean Claude Biskoubik erretiroa aurki hartzea, eta **enpresakideek** omenaldia egin nahi izan diote. Berria - Kirola

Nola ikusten duzu azken txanpa hori, zure **enpresakidearen** jardunetik hasita. Berria - Kirola

---

enpresalari ik **enpresari**.

---

enpresari *(**541** agerraldi, **48** liburu eta **344** artikulutan; ETCn **4.859** agerraldi; orobat **enpresario** **45** agerraldi, liburu **11** eta **8** artikulutan; ETCn **536** agerraldi; eta **enpresalari** g.er.)* **1** *iz* enpresaburua.

Enpresari eta talentu harrapari guztiak han izango dituk beharbada. Josu Landa

Enpresari sartu al haiz? Galdegite goratsua zein ironikoa lanbide bihurtzen dugu idazleok, teknikari edo **enpresari** edo merkatari baten jokabidearen guztiz ifrentzuan. Harkaitz Cano

Enpresarien ekimenaren aldeko konpromisoa erakusten du, ondoren, EBBren adierazpenak. Berria - Euskal Herria

Bihurgune batean autoa gelditzeko esan zion **enpresariari**, jaitsi zen Apodaka bestearekin eta bost bat minutu pasata bi tiro entzun ziren. Mikel Hernandez Abaitua

Enpresarien aurkako erasoak alde batera uzteko. Berria - Euskal Herria

Orain arte ez da igande eta jaiegunetan saltokirik zabaldu langileen eta **enpresarien** itunen ondorioz. Berria - Ekonomia

Sindikatuak, **Enpresarien** elkargoa eta izaera sozialeko erakundeak. Berria - Harian

Errepublikanoa aberatsen eta **enpresarien** alderdia omen da. Berria - Mundua

Handik urtebetera etorri zen Felipe Huarte **enpresariaren** bahiketa. Xabier Mendiguren Elizegi

Eraikuntza alorreko **enpresarien** aurrean, Mundu osoko hainbat artista, ekintzaile, idazle, adarjotzaile, ikasle, hezitzaile eta **enpresarik** hartzen dute parte fundazio honetan. Txema Ramirez de la Piscina

Berrikuntzarik gabe, ez dago **enpresaririk**; enpresa-lorpenik gabe, ez dago irabazi kapitalistarik, ez bultzada kapitalistarik. Iñaki Mendiguren

Hego Koreak soldaduak bidaliko ditu bahitutako **enpresaria** hilko dutela mehatxatu duten arren. Berria - Mundua

Hedabide horietako gehienen zuzendari edo gidariak *business school*etan trebatutako **enpresariak** dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

· Politikari, jaun **enpresari**, artista yupi... Patziku Perurena

Seme zapuztua jaun **enpresari** honexen zerbitzura hasiko da lanean. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ameriketako Estatu Batuetako agintariekin eta ALCA Ameriketako Merkataritza Eremu Librearekin hainbat akordio sinatu ditu presidenteak eta horiek zuzenean min egiten diete **enpresari** txiki eta ertainei. Berria - Harian

Jakin nuen **enpresari** gogorra izan zela Muñagorri hura bere langileekin. "Skyroom" dantzaleku berriak [...] ateak zabal-zabalik zeuzkan zinema ala antzerki aktoreentzat, **enpresari** boteretsuentzat, familia dirudun premuentzat, politikarientzat, Hollywood-etik bisitan zebiltzan izar amerikarrentzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Enpresari ahaltsua ematen zuen. Josu Landa

Irakurri zuela Quiapo auzoko jarduera ekonomiko nagusiena, **enpresari** dirudunen bahiketa zela. Ramuntxo Etxeberri

Auzoko **enpresari** baten emazteak. Joseba Urteaga

Hiriko **enpresari** ohikoa, lerdoa edo gaizki plazatua izan ezean, agintarien itzalpean biren jabe oheratu eta hogei dauzkatela atzarri diren horietarik. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan)

Gaur egun inoiz Venezuelan izan den **enpresari** belaunaldirik okerrena daukagulako. Hantxe zetzan ezpaletan txiki-txiki eginik gure **enpresari** borondate eta ausardia oro ere. Pako Aristi

· Smith faltsu haietako beste bat japoniar korporazio bateko exekutibo bati edo argentinar eraikuntza **enpresari** bati saltzea lortzen zuen bakoitzean, bere bihotz zigortuak jauzi egiten zuen zoriontasunezko berrogeita zazpi uztai zeharkatuz. Oskar Arana

Zirku **enpresari** hark benetako filosofotzat zeukan bere burua. Harkaitz Cano

«Sasi-**enpresariek**» beti egin dituztela horrelakoak, baina haiek salatzearekin bat Asegarceren ekimena ere salatzendutela, «EPELen barruko enpresa bat delako». Berria - Kirola

· Sagoeneko ez zen komisarioa **enpresari**-filosofoarekin fio. Harkaitz Cano

4

Politikari, jaun **enpresari**, artista yupi... Patziku Perurena

Seme zapuztua jaun **enpresari** honexen zerbitzura hasiko da lanean. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabako enpresarien (5); **enpresari aberats** (5); **enpresari bat** (5); **enpresari batek** (4); **enpresari baten** (3); **enpresari batzuen** (3); **enpresari edo** (3); **enpresariak dira** (3); **enpresariek eta** (4); **enpresarien elkarteak** (5); **enpresarien elkartearen** (3); **enpresarien elkarteko** (3); **enpresario eta** (3); **eta enpresariak** (3); **eta enpresariei** (3); **eta enpresarien** (7); **eta enpresarioek** (3); **nafarroako enpresarien** (3)

---

enpresarial *izond* enpresarena, enpresari dagokiona.

Administrazioak zorrak barkatzen dizkion neurrian, talde **enpresarialen** bat ardura hartzeko prest egon liteke. Berria - Mundua

Aitortzen den batez besteko lan errentaren eta jarduera **enpresarial**, profesional eta artistikoen errentaren artean alde handia dagoela. Berria - Ekonomia

Kudeaketa **enpresariala** jorratzeko institutua bultzatu dugu, baina zientzia elkartea ere hor dago. Berria - Kultura

Testuinguruen arabera, naturari itsatsi geldoa edo izpiritu **enpresarial** eta komertzial iradukoa. Joxe Azurmendi

Ikuspegi **enpresarial** eta pragmatiko garbia. Berria - Harian

Gizarte proiektua zen berea, ez soilik **enpresariala**. Iñaki Heras

Enpleguaren egonkortasunaz edota proiektu **enpresarialarekiko** konpromisoaz hitz egiten hasi behar dela uste du patronalak. Berria - Ekonomia

2002ko Venezuelan eskuineko indar politiko, militar, eta **enpresarialak** aginteaz jabetzen saiatu ziren, bortxakeria erabiliz. Txema Ramirez de la Piscina

---

enpresario ik **enpresari**.

---

enpresaritxo *iz adkor* enpresaria.

Konbentzitu behar izan dugu, kontua dagoen bezala, hainbeste atxiloketa eta gezur, **enpresaritxo** horrek ez duela hainbeste arrisku merezi. Urtzi Urrutikoeetxea

---

enpresaritza *iz* enpresaren eta enpresarioen mundua.

George Washington Unibertsitatean **Enpresaritza** ikasi zuen ondoren. Berria - Mundua

Hiru urte joan dira, **Enpresaritzan** lizentziaduna naiz, eta Portlanden jokatzen dut. Berria - Kirola

Londres hotelean finantzabidearen dekretuari buruzko mahai-ingurua eskainiko dute Susana Serrano ekonomistak, Eusebi Nomen **enpresaritzako** adituak eta Ramon Zallo Ikus-entzunezko Komunikazioetako katedradunak. Berria - Kultura

Bilboko **enpresaritza** eskolan. Berria - Euskal Herria

Baita **Enpresaritza** ikasketetan ere: 500 lekutik 450era. Berria - Euskal Herria

---

enregistratu, enregistra, enregistratzen du *ad* grabatu.

Akzidente bat baldin baduzu eta zure buruan odol isurtze bat baldin bada, memento batetako gertakariak bate ez dira **enregistratuak** izanen. Menane Oxandabaratz

---

enrobatu, enroba, enrobatzen du *ad* estali.

Lotizamenduko bideak **enrobatuak** izan dira, argi publikoa lurpean ezarri ondoan. Herria

---

enroilatu, enroila, enroilatzen *(orobat **enrollatu**)* **1** da/du *adkor* haragizko harremanean katramilatu.

Horregatik izan liteke aberatsa maitasun bat **enroilatu** gabe ere! Pako Aristi

-Badakizu norekin **enroilatu** zen atzo Irene? Jon Arretxe

Mutil askorekin **enroilatu** naiz, askorekin egin dut larrutan eta gustura. Pako Aristi

Nola liteke ordea maite ninduela esaten zidan tipo batek [...] hartu eta bat-batean beste neska batekin **enrollatzea**? Antton Olano

Elkarrekin **enrollatuta** egongo zirela pentsatu nuen, eta oporraldia luzatu nahiko zutela. Xabier Mendiguren Elizegi

Amsterdametik itzuli zenean, erabakia zuen lehenbailehen berriro Itxasorekin **enroilatzea** eta egoera garbi agertzea. Pako Aristi

Behin **enrollatu** eta pentsatzen dute eurekin ezkondu behar duzula. Jon Arretxe

Hemen ikusten dut **enroilatu** zinen tipo horrekin zakarra izateko arriskua daukazula, ze harekin zaudela ere bestearekin akordatzen zara. Pako Aristi

Jo, baina, lehengoan **enroilatu** nintzenak ere tiratzen dit. Pako Aristi

-Nik, Asier... ez diat hirekin jarraitu nahi... beste bat maite diat, eta hirekin **enroilatu** izan banaiz... gustatu zaidak, baina ez nagok hitaz maiteminduta, beste maitasun baten itxaropena neukaan. Pako Aristi

2 luze hitz egin, hitz eta pitz jardun.

Québeceko idazle batekin **enroilatu** ninduan gau batez; oso pertsona interesgarria, benetan. Iban Zaldua

-Ez hadi **enrollatu**, hi! Antton Olano

Nik horrela gainditu nuen karrera osoa: **enroilatzeko** azterketetan irudimena eta larrua konbinatuz, eta bestelakoetan txuletekin. Jon Arretxe

3 (era burutua izenondo gisa)

Soziologo, psikologo eta jendilaje horrek azalpen luzeagoak emango lituzke baina, hitz pare batean edonork ulertzeko, tipo **enrollatua** zela esango nuke. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
enroilatu zinen (3); **lehengoan enroilatu** (3)

---

enrolatu, enrola, enrolatzen da *ad* itsasontzi batean izena eman; armadan edo kidekoetan izena eman.

Arrain-kaxak egiten zituen zurgina **enrolatu** izan ez balitz mareaje hartarako, lanean aritzen zen sotoa erosi egin nahi zuela-eta dirutxo baten afanean. Koldo Izagirre

Batzuk **enrolatuak** zeuden, besteak ihesian. Koldo Izagirre

Azken txangoan hona ekarri zituen Paco Garay eta Roberto sobrecargo y no se qué legez **enrolatuta**. Edorta Jimenez

Moilan zebilena jende arrotza zen, terrestreak denak, esan haiei bereizteko arra eta emea legatzetan, gure galego guztiak errepublikaren armadan **enrolatuak** ziren, badakizu. Koldo Izagirre

Batu itzak hirurehun mutil heure konfiantzakoak eta **enrola** hadi matxino horiekin. Juan Garzia

---

enrollatu ik **enroilatu**.

---

enroskatu, enroska, enroskatzen da *ad adkor* enroilatu.

-Ez daukak puta idearik, tio, ez haiz batere **enroskatzen** peñarekin e! Pako Aristi

---

ensaiatu ik **entsaiatu**.

---

ensaimada ik **entsaimada**.

---

ensanblatu, ensanbla, ensanblatzen du *ad* bi pieza edo gehiago ahokatu.

Marrak egin, marrak endredatu, giza gorputzaren zatiak ahalik eta okultismo gehienez **ensanblatzen**. Joseba Sarrionandia

---

ensilatze *iz* siloetan gordetzea.

Lizeoan, baxoko euskara orduetan hitz apurrak ikasten eta gaineratikoak, herriko nekazariekin arto eta belar **ensilatzeen** karietara bereganatzen zituen. Itxaro Borda

---

ente **1** *iz* materialki edo mentalki esistitzen den gauza edo izakia.

Hauxe da tesia: *Omne ens est verum*; hau da, **ente** oro egiazkoa da. Karlos Linazasoro

Eskafandrak direla paper zaharrak ondoen kontserbatzen dituzten **enteak**. Unai Elorriaga

Gero eta konbentzituago baitzegoen bere gorputza katu bat bezalakoa zela edo, beste era batera esanda, bere gorputza zela inori kasurik egin gabe bizi zen **ente** bat. Unai Elorriaga

Jainkoak **ente** guztiak beren esentzian ezagutzen ditu, bera baita sortzailea, Hark berak sortu baitu **entea**. Karlos Linazasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Polizia **ente** publikoaren aurpegi latzena da beti, eta aurpegi latzaren barruan, leunena udaltzainena da. Berria - Kultura

Merkatua kontrolatzen duen eta ez-leku batean dagoen **ente** global bat aipatu duzu *Imperio* liburuan. Berria - Kultura

Abuztuko egun sargoria izan zen, airea **ente** mardula den egun horietakoa, Portugalgo hondartza batean. Eider Rodriguez

Esanahia ez da hitzetik harago dagoen **ente** psikologiko edota sasimetafisiko bat. Askoren artean

Osasun Saila **ente** birtual antzekoa da, baina jendeak zerbaiti buruz iritzia eman eta idazten badu, ukitua sentitzen delako izango da. Berria - Euskal Herria

EB ez da oraindik Zuzenbide Estatu bat, ez da **ente** oso bat; hitzarmen baten bidez gidatzen den estatuen klub bat da. Berria - Euskal Herria

Esanahia ez da hitzetik harago dagoen **ente** autonomoa. Askoren artean

Hamasen jomuga «**ente** sionistatzat» jotzen duen Israel izango dela eta ez Tel Aviveko gobernuaren ohiko aliatu diren Amerikatateko Estatu Batuak. Berria - Mundua

Kostatu behar zitzaion garai hartako EITBrena azaltzen, nola litekeen hiru enpresa desberdinek Zinezko **Ente** Bakar Bat osatzea. Joxerra Garzia

Intrahistoriaren metafora ia denek egona, pasibitatea adierazten dute, eta denboragabe eta zedarrigabetasuna, h[au] d[a], izan bat, intuizioak bakarrik atzeman ahal izateko modukoa [...], hots, **ente** ahistoriko, metafisiko bat azkenean. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
dagoen ente (3)

---

entelegatu ik **endelegatu**.

---

entelegu ik **endelegu**.

---

entelekia *iz* erreala ez den gauza.

Errazena, **entelekia** : klimaterioa, menopausia eta andropenia errudun unibertsal direla aldarrikatuko dugu, kaltetuak eta errudunak lasaiago uzteko. Edorta Agirre

Norberarengandik hasi eta azken **entelekiaraino** . Juan Garzia

Entelekia benetakorik gabeko materia hori bere bizi-oldar eta kargu-hartzailearen inperatibo kategorikoaz jaurtitzen da. Xabier Olarra

---

entendimendu *(orobat **entendimentu**) iz* adimena; ulermena, adimendua.

Gorreria apur bat makaldu eta **entendimendua** berreskuratu nuelarik, jauzi zalu batez buruz behera jarri eta baserriko kare zurizko hormaren kontra paratu nintzen, buruz behera, neukan beso bakarraren gainean. Jakina baita kartzela eta garizuma pobreentzako egin zirela, eta goseak **entendimendua** argitzen du. Harkaitz Cano

Gure garaiak **entendimenduz** jantzi dik berez **"entendimendu** gabia" zena, hik badakik zergatik. Anjel Lertxundi

Entendimendu laburreko haur bati hitz egiten zaion eran. Anjel Lertxundi

Agrafoak, irudimen arinekoak eta ardankoiak ziren, baina, **entendimentu** urrikoak. Patziku Perurena

[Zelta] **entendimentu** eskaseko baina irudimen handiko zaizkia zela esan genezake, eta batez ere eskulanean trebe. Patziku Perurena

Baina litekeena da dena ameskeria izatea, **entendimenduaren** okerra izatea. Fernando Rey

---

entendimentu ik **entendimendu**.

---

entenditu, entendi, entenditzen *(orobat **entenitu**)* du *ad* ulertu.

-Lehengo eguna lehengo eguna zuan eta gaur gaur duk, **entenditzen** ? Antton Olano

Indarretik sortutako errukiaz ari naiz, **entenditzerakoan** loratu eta gaitzesterakoan umotu denaz. Patziku Perurena

Bizi-sistema horrek zerikusi zuzena izango zuen meategiak itxi osteko bizimodua **entenditzeko** . Xabier Mendiguren Elizegi

Ez du **entenditzen** , baina badaki ez duela telefono deia erantzun behar, ez zaiola komeni. Eider Rodriguez

Ez duzue ezer **entenditzen** . Koro Navarro

Han hasi zunan mutikoa garrasika, eta, italianoa zenez, ez zitzaionan tutik ere **entenditzen** . Xabier Mendiguren Elizegi

Zu ere konturatzen zinen ez nuela piperrik ere **entenditu** . Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zuela zipitzik ere **entenditzen** erdaraz. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer uste duk, espainolez **entenditzen** duela, ala! Pablo Sastre

Sugeak bezala sistuka aritzen dira eta horrela dute elkar **entenditzen** . Aurelia Arkotxa

Ez dakit ondo esplikatzen naizen, nik ere lanak ditut nere burua **entenditzen** . Unai Iturriaga

Entenditzeko moduan esango dizuet. Iñaki Segurola

Leitu behar ditugun paperak ikusi, **entenitzen** ez ditugun hitzak esplikatu. Koldo Biguri

Hasteko, ez dut **entenditzen** zer egiten duen hemen. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
entenditzeko moduan (4); **ere entenditu** (3); **ere entenditzen** (3)

---

entenga *iz* hamalauren bat zentimetroko iltzea.

Ziri bezala iltze bat erabiliz - **entenga** esaten zitzaien Obaban-, zinta-karrerarako entrenatzen hasi nintzen. Bernardo Atxaga

Bizkarrean min atsegin bat sentitu nuen, norbaitek **entenga** bat sartu balit bezala. Fernando Rey

Eskopeta **entengan** zintzilikatuz. Pako Aristi

---

entenitu ik **entenditu**.

---

entente

1 ***entente cordiale*** itun adeitsua.

Togliattiren aurkako atentatuaren ondoko hiruzpalau urte latzen ondoren, demokrata kristauek eta komunistek **entente cordiale** moduko bat adostu zuten, eta ateak zabaldu zizkieten garai pragmatikoago batzuei. Anjel Lertxundi

Zoritxarreko gertakizuna ordurarte bi herri handiok zuten **entente cordiale** -rako; izan ere, Sultanaren andrea zen. Xabier Olarra

Adiskidetasun horren inguruan, **Entente Cordiale** akordioa sinatu zuten bi estatuek orain dela hilabete batzuk. Berria - Mundua

---

enteradillo *iz adkor* jakin-ustea. ik **enteratu 4**.

Lanak egiten dituen **enteradilloak** *Kool and the Gang* jarri du tokatan eta hor hasi dira japoniarrak Yushio Travolta bailiran. Harkaitz Cano

---

enteratu, entera, enteratzen *(orobat **enterau** g.er.)* **1** da *ad* jakitun egin; jabetu.

Gaztea nintzen oraindik, **entera** zitezela. Harkaitz Cano

Baina ardura zitezela inor **entera** ez zedin. Lourdes Oñederra

Enteratu egingo naiz. Unai Elorriaga

-Ume honen aita **enteratu** al da aita izan dela? Arantxa Iturbe

Hobe, dena den, inor ez **enteratzea**. Lourdes Oñederra

Ea **enteratzen** zaren! Jon Arretxe

Ni beti **enteratzen** naiz azkena. Pedro Alberdi

Ostatuko etxekoandrea **enteratu** ez zenik, nekez sinets dezaket. Anjel Lertxundi

Orduan mundu guztia **enteratuko** duk! Pako Aristi

Prentsaren bitartez **enteratu** gara. Berria - Kultura

Aita **enteratu** zen irrati bidez. Berria - Kultura

Ez zakiat **enteratu** haizen baina maitale hori hi haiz. Joxean Agirre

-Eta bera **enteratu** gabe ezin al duzu salbuespenik egin...? Xabier Mendiguren Elizegi

Orduak eman zituen lotan bai, ezertaz **enteratu** gabe. Joxemari Iturralde

Kontsumismoaren amarrua, esaten diet nik, baina nire pisukideok ez dira ezertaz **enteratzen**. Jon Arretxe

Ez pentsa, hemen txutxumutxu horiez guztiez **enteratzen** naiz. Eider Rodriguez

Figurante horiek komunikazioak bere baitan dakarren konpromiso etikoaz ez dira **enteratu** ere egin. Txema Ramirez de la Piscina

Azken finean, pentsatu nuen, ipuina eta liburua euskaraz kaleratuko dira, eta inor gutxi **enteratuko** da bertan esandakoez. Iban Zaldua

-Ni ia ez naiz **enteratu**. Jon Arretxe

Oraindik ez dakit nola demontre **enteratzen** den nire joan-etorriez, baina hala da beti, hutsik egin gabe. Iban Zaldua

Estatu kolpea gertatzen denean presidentea da **enteratzen** azkena. Joseba Sarrionandia

Enteratzen badira hura nola dabilen, kapaz dira umea kentzeko. Pablo Sastre

Ez haiz sekula **enteratuko** gizarte honen ehuneko handi batek zenbait objektu pertsonen estimu maila berean dituela. Unai Iturriaga

Hala eta guzti, bertoko jende gehiena edo ez da **enteratzen** edo ez du **enteratu** gura jazotzen denaz. Jon Arretxe

-Hobeto **enteratu** behar dut arazo horretaz, batzuen gorabeherak badakizkit baina. Pako Aristi

Enteratu egin beharko dut zein den 40 urtekoen artean markarik onena. Berria - Kirola

2 (du aditz gisa)

Eta berorrek nahi badu **enteratuko** diot zein den. Juan Garzia

3 (era burutua izenondo gisa)

Ez dira enteratzen, baina **enteratuenak** ere ez du paper errazik. Arantxa Iturbe

4 (era burutua izenondo gisa, adkor) jakin-ustea.

-Esan dizut lehen ere, **enterau** bat da! Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita enteratu (3); **enteratu ere** (5); **enteratu ere egin** (3); **enteratu ez** (4); **enteratu gabe** (4); **enteratu zen** (3); **enteratuko ez** (4); **enteratuko ez balitz** (3); **ez dira enteratzen** (3); **ezertaz enteratu** (3); **ezertaz enteratzen** (4)

---

enteratzeke *adlag* enteratu gabe.

Londreserako bidaia ingeles ikastaroak egitearren, hau da, hobeto abortatzearren inor **enteratzeke**. Joxemari Iturralde

---

enterau ik **enteratu**.

---

entero *(orobat **enteru**) izond adkor* osoa, erabatekoa.

Puraren maitalea, ergel **enteroa**, bere gremioko gehienak bezala, izkirimiri txotxoloen egilea izatez gainera, pikaro hutsa zen, ikusten zuen guztia eramateko prest. Josu Zabaleta

Gerrako lehen biktimetako batez mintzatu zitzaigun herriko nekazari bat, karlista **enterua** bera, eta esan zigun: "Banderan dena bilduta ekarri ziaten". Bernardo Atxaga

---

enterobirus *iz* arnas aparatuko eta digestio aparatuko infekzioak eragiten dituen birus familia.

Haurren artean ohikoenak **Enterobirus** izeneko birusak eragindako meningitisak dira, eta, salbuespenak salbuespen, tratamenduen bidez sendatzeko arazo handirik ez da izaten normalean. Berria - Euskal Herria

---

enterokoko *iz* bakterio mota, hesteeetan eta emakumeen aparatu genitalean bizi dena.

Kontuan hartuko dira gizakion osasunari gehien eragiten diotenak: hesteetako **enterokokoak** eta *escherichia coli* bakterioa neurtuko dira, batez ere. Berria - Harian

---

enterradore *iz* lur-emailea, lurperatzailea, ehorzlea.

Heriotzaz hain dakigu gutxi, non berarekiko gure harremana irudietan finkatzen dugun: osaba hilaren aurpegi zuhaila, senideen negarra, ume txikien beldurra batzuetan, ezaxolakeria bestetan, kanposantuko ate handi irekiak, **enterradoreak** lurra nola jaurtitzen duen kutxa gainera. Pako Aristi

Handik bi astera hil zen eta neguko egun izugarri hotz batean enterratu zuten, eta oraindik ederki oroitzen naiz nola **enterradoreek**, etxera bila etorri zirenek, lanazko manopla lodiak zituzten eta hala ere bi eskuekin gorputzean txapaka egin behar zuten pixka bat berotzeko. Zer esango zuten hilobikideek, edo zer esango zuen **enterradoreak**, eta **enterradorearen** emazteak edo **enterradorearen** seme-alabek, Luz, Seol eta Cristobalek. Matías Múgica

"Zulo batetik irten, eta beste zulo batean sartu bitartekoa", horrela definitu ohi zuen bizitza Ezkioko **enterradore** zenak. Joxerra Garzia

Gauza arraroak ikusten zituela han, hala nola, xakean ari diren **enterradoreak** edo pelikulen argumentuak kontatzen dituzten mandeuliak. Unai Elorriaga

---

enterramendu *iz ipar* hildakoari lur ematea.

Ez dut **enterramendu** hori egiten ahal... bilkura bat badut. Herria

Gero telefono kolpeak, bilkurendako; **enterramendu** bat prestatu doluan den familiarekin... dena metatzen da. Menane Oxandabaratz

"Agur Jaunak" aita familiako gazte baten **enterramenduan**. Herria

Bi **enterramendu** horiek jende oste haundia bildu dute. Herria

Enterramendu eguneko gertakariekin jarraituko zuen. Itxaro Borda

Batzueri iduritu zaiote halere biltzar horrek bazuela halako **enterramendu** aire bat. Herria

---

enterratu, enterra, enterratzen **1** du *ad* lur eman.

Handik bi astera hil zen eta neguko egun izugarri hotz batean **enterratu** zuten. Matías Múgica

Egun **enterratu** dugu ene adiskide bat, hemezortzi hilabetez minbiziarekin borrokan ari izan da. Menane Oxandabaratz

2 lurperatu.

Ikusten dut mundua, mila logos berri ergel sortuz progresatzen doala, eta gure herrixka euskaldun mixerable hau ere horren inbidiaz galtzera doala, eta min dut bihotzondoko zainetaraino, eta lurrak urritzen ari zaizkit mina **enterratzeko**. Patziku Perurena

3 irud/hed

Haizea gure kontra denean, hildako soldaduak zuhaitzetara jasotzen ditiztek, geronek hildakoen ustel usaina geronen sudurtzuloetan **enterratzeko**! Harkaitz Cano

---

enterratzaile *iz* lurperatzailea.

Filotti zaharra eta Bruciatako agurea borrokarik egin gabe daude azkenik elkarren ondoan; are gehiago, **enterratzaileak** esaten du inoiz ez dituela ikusi bi hildako hain ados. Koldo Biguri

---

enteru ik **entero**.

---

entierro *(orobat **entierru**) iz* lur ematea, lurperatzea, ehorzketa; hileta elizkizuna.

Egunkarian Julio Cortazarren hileta arratsaldean dela irakurri dudanean, Montparnasserako metroa hartu ez hartu nago: bizirik badago, aitak **entierroan** beharko du, Julioren hilobiko porlan freskoaren gainean tango bat dantzatuz. Harkaitz Cano

Zein ordutan hil zen, gorputza noiz jasoko zen eta hileta edo **entierroa** noiz izango zen. Pako Aristi

Nire aitaren **entierro** hura, nire haur denborako oroitzapenetan, on xamarretakoa da. Matías Múgica

Entierrora gelldituko da. Pako Aristi

Entierro ostean, eliz atarian aurkitu dituen mamu-gizonetako batek erakutsi dion bidexkari heldu dio. Pako Aristi

Entierroa nahi dut egitea niri bigarren klasean. Anjel Lertxundi

Entierroetan, pezeta. Arantxa Iturbe

---

entierru ik **entierro**.

---

entimema **1** *iz* silogismo laburtua, premisetako bat falta duena begien bistakotzat hartzen delako.

"Gehiago gara; beraz, irabaziko dugu" esanez, Perelmanek agintari frantses baten ahotan ipini zuen **entimemaren** aurrean, bertsolaritzaren ohiko argudioa izan da, adibidez, "ez dugu arrazoirik, gutxi garelako". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aurkariak gure aurka baliatu dezakeelakoan premisa bat ezkutatu diogun silogismoa da **entimema**. Joxerra Garzia

Amarru edo martingala horietako bat da **entimema**. Joxerra Garzia

Entimeman, premisetako bat ez da bete-betea, xuxen-xuxena izaten. Gaur egun ere barra-barra erabiltzen dira, ditugu, alde batean zein bestean, **entimemak** eta gainerako martingalak. Joxerra Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Har dezagun antitesia, esate baterako: Perelmanen iritziz presentziazko baliabide bat da, eta ez du arrazoi falta, baina **entimema** molde bat ere izan daiteke diskurtsoan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Berehala hartu nion **entimema**-usaina horrako horri. Joxerra Garzia

---

entitate **1** *iz* erakundea, elkartea.

Kataluniak **entitate** eta subjektu bereizia izan beharko du, Euskal Herriak izan beharko lukeen bezala. Berria - Harian

Une honetan 1.190 enpresak, saltokik eta era guztietako **entitatek** dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Berria - Euskal Herria

Era guztietako **entitateak** baturik, milioi bat bazkide dituzte dagoeneko. Berria - Harian

Aurrerago, diru-sarreren kopurua zehaztuta, eta urteko egiazko balantzea eskuartean, prest legoke **entitate** hau zure eskaera berriz aztertzeko. Arantxa Iturbe

Interesatuak diren elkarte edo **entitatek** ekainaren hogeitamarra arteko epea dute beren proiektuaren hel erazteko. Herria

Plan hori kudeatzeko **entitate** bat eratzea ere hitzartu dute. Berria - Euskal Herria

Fernando Ochoa **entitatearen** kudeatzaile ohiak ere Lamikizekin lan egingo du. Berria - Kirola

Praktikan, estatu konfederaleko bi **entitateak** bananduta dabiltza egunerokoan. Berria - Harian

Entitateentzako kostu bat dakar, baina, aldi berean, erakundeek onartu beharko lukete zenbat eta txartel gehiago erabili, orduan eta etekin handiagoak jasotzen dituztela. Berria - Harian

Gizarteko talde baztertuei laguntzeko helburua du Itunek, eta 26 **entitatez** osatua dago. Berria - Ekonomia

Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako **Entitateen** Legea. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Entitate fundatzaile biek (Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak), berriz, 20 izendatu dituzte. Berria - Ekonomia

Annanek zuzentzen duen nazioarteko erakundeko **entitate** goreneko hamabost kideek aho batez onartu dute ebazpena. Berria - Mundua

Celtaren aulkian egondako **entrenatzaile** aldaketak eta Eibarren kontra galdutako partida garrantzitsuak ez du eraginik izan behar gasteiztarrengan. Berria - Kirola

Entrenatzaile dantza horretan daude Serra Ferrer Bartzelonako entrenatzaile ohia eta Txetxu Rojo ere. Berria - Kirola

Neska garai bat hurbildu zen eskubaloiko gunera, eta musu eman zion **entrenatzaile** lana egiten zuen mutilari. Bernardo Atxaga

Herrian bertan, igeriketako **entrenatzaile**-lanetan aritua zen beste Gazte Kristauen Elkarte batean. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Enekok, nahi duena egin behar izaten du beti, baina futbol- **entrenatzailea** ni naiz, nik jartzen ditut arauak eta nik egiten ditut alineazioak. Joan Mari Irigoien

5 (hiru osagaiko elkarteetan)

Gidaria berrogeitaka urteko gizon mardula zen, futbol **entrenatzaile** itxura handiagoa zuena kanposantu bateko gidari izatekoa baino. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adierazi zuen entrenatzaile (6); **alaveseko entrenatzaile** (8); **atezainen entrenatzaile** (4); **athleticeko entrenatzaile** (10); **atzo entrenatzaile** (8); **atzo entrenatzaile mexikarrak** (7); **baina entrenatzaile** (8); **bartzelonako entrenatzaile** (7); **bera berako entrenatzaile** (5); **berako entrenatzaile** (5); **bere entrenatzaile** (6); **beste entrenatzaile** (9); **beste entrenatzaile bat** (5); **bigarren entrenatzaile** (15); **clemente entrenatzaile** (5); **da entrenatzaile** (9); **dira entrenatzaile** (5); **ditu entrenatzaile** (8); **du entrenatzaile** (20); **du entrenatzaile mexikarrak** (5); **duen entrenatzaile** (5); **dute entrenatzaile** (4)

akarrak (4); **entrenatzaile aldaketa** (10); **entrenatzaile aldaketak** (12); **entrenatzaile bakoitzak** (4); **entrenatzaile bat** (21); **entrenatzaile batek** (12); **entrenatzaile baten** (6); **entrenatzaile berri** (5); **entrenatzaile berria** (34); **entrenatzaile berria du** (6); **entrenatzaile berriak** (29); **entrenatzaile berriarekin** (10); **entrenatzaile berriaren** (4); **entrenatzaile bezala** (5); **entrenatzaile bizkaitarra** (4); **entrenatzaile bizkaitarrak** (5); **entrenatzaile espainiarrak** (5); **entrenatzaile eta** (34); **entrenatzaile eta jokalari** (5); **entrenatzaile francisco** (14); **entrenatzaile francisco javier** (14); **entrenatzaile frantziarrak** (14); **entrenatzaile gazteak** (5); **entrenatzaile gisa** (18); **entrenatzaile**

guztiekin (5); **entrenatzaile izan** (17); **entrenatzaile izan zen** (6); **entrenatzaile izandakoak** (4); **entrenatzaile izatea** (4); **entrenatzaile izateko** (5); **entrenatzaile javier** (5); **entrenatzaile jose** (6); **entrenatzaile kargua** (5); **entrenatzaile karguan** (8); **entrenatzaile kargutik** (11); **entrenatzaile lana** (4); **entrenatzaile lanak** (6); **entrenatzaile lanetan** (9); **entrenatzaile meñ entrenatzaile mexikarra** (8); **entrenatzaile mexikarrak** (72); **entrenatzaile moduan** (4); **entrenatzaile ohi** (6); **entrenatzaile ohia** (21); **entrenatzaile ohiak** (32); **entrenatzaile ona** (6); **entrenatzaile onena** (4); **entrenatzaile txuri** (11); **entrenatzaile txuri urdinak** (10); **entrenatzaile zela** (17); **entrenatzaile zuri** (6); **entrenatzaile zuri gorriak** (5)

ere entrenatzaile (7); **esan zuen entrenatzaile** (9); **eta entrenatzaile** (33); **etxeko entrenatzaile** (6); **euskal entrenatzaile** (4); **gorritxoen entrenatzaile** (4); **madrileko entrenatzaile** (5); **mailako entrenatzaile** (6); **osasunako entrenatzaile** (12); **osasunako entrenatzaile mexikarrak** (7); **portlandeko entrenatzaile** (12); **portlandeko entrenatzaile francisco** (9); **realeko entrenatzaile** (19); **taldeko entrenatzaile** (25); **tauko entrenatzaile** (5); **zuen atzo entrenatzaile** (7); **zuen entrenatzaile** (43); **zuen entrenatzaile mexikarrak** (21)

aguirre entrenatzailea (7); **aguirre osasunako entrenatzailea** (11); **alaveseko entrenatzailea** (6); **atezainen entrenatzailea** (6); **athleticeko entrenatzailea** (12); **barakaldoko entrenatzailea** (4); **baskoniako entrenatzailea** (14); **bera berako entrenatzailea** (5); **berako entrenatzailea** (5); **bere entrenatzailea** (4); **bigarren entrenatzailea** (27); **da entrenatzailea** (17); **denoueix realeko entrenatzailea** (5); **duen entrenatzailea** (7); **eibarreko entrenatzailea** (5); **ekisoain entrenatzailea** (6); **ekisoain portlandeko entrenatzailea** (5); **entrenatzailea aldatu** (12); **entrenatzailea baikor** (4); **entrenatzailea bera** (9); **entrenatzailea bera ere** (5); **entrenatzailea bota** (14); **entrenatzailea da** (22); **entrenatzailea ere** (16); **entrenatzailea eta** (32); **entrenatzailea ez** (11); **entrenatzailea ez da** (5); **entrenatzailea fitxatu** (6); **entrenatzailea itxaropentsu** (5); **entrenatzailea izan** (16); **entrenatzailea izango** (16); **entrenatzailea izango da** (8); **entrenatzailea kaleratu** (5); **entrenatzailea kargutik** (4); **entrenatzailea oso** (5); **entrenatzailea pozik** (5); **entrenatzailea zen** (6); **eta entrenatzailea** (20); **handiko entrenatzailea** (4); **hormadiko entrenatzailea** (4); **itxakoko entrenatzailea** (6); **javier aguirre entrenatzailea** (6); **lehen entrenatzailea** (5); **nire entrenatzailea** (5); **orduan entrenatzailea** (4); **osasunako entrenatzailea** (18); **portlandeko entrenatzailea** (9); **realeko entrenatzailea** (17); **selekzioko entrenatzailea** (4); **taldeko bigarren entrenatzailea** (5); **taldeko entrenatzailea** (26); **tau baskoniako entrenatzailea** (14); **tauko entrenatzailea** (7); **zen entrenatzailea** (13); **zuen entrenatzailea** (10); **zupo ekisoain entrenatzailea** (5)

adierazi zuen entrenatzaileak (5); **aguirre entrenatzaileak** (36); **aguirre osasunako entrenatzaileak** (12); **alaveseko entrenatzaileak** (16); **amorrortu entrenatzaileak** (12); **arrateko entrenatzaileak** (4); **as entrenatzaileak** (4); **athleticeko entrenatzaileak** (52); **baina entrenatzaileak** (14); **barakaldoko entrenatzaileak** (5); **bartzelonako entrenatzaileak** (4); **basketeko entrenatzaileak** (5); **baskoniako entrenatzaileak** (8); **beharko du entrenatzaileak** (5); **bera berako entrenatzaileak** (8); **berako entrenatzaileak** (8); **berbizier entrenatzaileak** (4); **bidasoako entrenatzaileak** (6); **bidorreta entrenatzaileak** (5); **bigarren entrenatzaileak** (15); **chuchi cos entrenatzaileak** (6); **clemente entrenatzaileak** (5); **cos entrenatzaileak** (7); **da entrenatzaileak** (7); **delmas entrenatzaileak** (8); **denoueix entrenatzaileak** (6); **denoueix realeko entrenatzaileak** (9); **deportivoko entrenatzaileak** (4); **die entrenatzaileak** (4); **dio entrenatzaileak** (6); **dira entrenatzaileak** (6); **ditu entrenatzaileak** (16); **du entrenatzaileak** (43); **du portlandeko entrenatzaileak** (8); **dueñ eibarko entrenatzaileak** (5); **eibarreko entrenatzaileak** (10); **eibartarren entrenatzaileak** (4); **ekisoain entrenatzaileak** (14); **ekisoain portlandeko entrenatzaileak** (9)

entrenatzaileak adierazi (7); **entrenatzaileak aitortu** (6); **entrenatzaileak aldaketa** (7); **entrenatzaileak argi** (13); **entrenatzaileak argi du** (6); **entrenatzaileak atzo** (32); **entrenatzaileak azpimarratu** (5); **entrenatzaileak badaki** (10); **entrenatzaileak behin** (5); **entrenatzaileak berak** (13); **entrenatzaileak bere** (22); **entrenatzaileak beste** (7); **entrenatzaileak bi** (11); **entrenatzaileak denboraldi** (4); **entrenatzaileak egindako** (4); **entrenatzaileak erabaki** (4); **entrenatzaileak erabakiko** (4); **entrenatzaileak ere** (22); **entrenatzaileak esan** (18); **entrenatzaileak esan zuen** (8); **entrenatzaileak eskatzen** (4); **entrenatzaileak eta** (29); **entrenatzaileak ez** (56); **entrenatzaileak ez du** (32); **entrenatzaileak ez zuen** (8); **entrenatzaileak ezin** (4); **entrenatzaileak ezingo** (4); **entrenatzaileak garbi** (4); **entrenatzaileak gaur** (4); **entrenatzaileak hala** (7); **entrenatzaileak hartu** (4); **entrenatzaileak hiru** (6); **entrenatzaileak hutsune** (7); **entrenatzaileak hutsune bakarra** (5); **entrenatzaileak jokalari** (8); **entrenatzaileak lehen** (4); **entrenatzaileak nahi** (6); **entrenatzaileak nahiago** (5); **entrenatzaileak nigan** (5); **entrenatzaileak onartu** (5); **entrenatzaileak ondo** (5); **entrenatzaileak ordezkatuko** (5); **entrenatzaileak ordezkatuko du** (5); **entrenatzaileak zalantza** (6); **entrenatzaileak zalantza bakarra** (5)

ernesto valverde entrenatzaileak (17); **esan zuen entrenatzaileak** (14); **eta entrenatzaileak** (51); **frank rijkaard entrenatzaileak** (5); **gibelekoen entrenatzaileak** (4); **gordobil entrenatzaileak** (19); **gorriko entrenatzaileak** (4); **gorritxoen entrenatzaileak** (5); **indautxuko entrenatzaileak** (5); **ingalaterrako entrenatzaileak** (4); **itxakoko entrenatzaileak** (9); **javier aguirre entrenatzaileak** (30); **javier clemente entrenatzaileak** (5); **jokalariak eta entrenatzaileak** (5); **jokalariek eta entrenatzaileak** (8); **lagisquet entrenatzaileak** (13); **laporte entrenatzaileak** (10); **lutaud entrenatzaileak** (15); **madrileko entrenatzaileak** (6); **mari amorrortu entrenatzaileak** (7); **mel alaveseko entrenatzaileak** (6); **mel entrenatzaileak** (4); **mendilibar entrenatzaileak** (5); **mentieres entrenatzaileak** (4); **miarritzeko entrenatzaileak** (4); **nahi du entrenatzaileak** (5); **olabe entrenatzaileak** (4); **oliva entrenatzaileak** (4); **osasunako entrenatzaileak** (34); **paco entrenatzaileak** (11); **portlandeko entrenatzaileak** (33); **raynald denoueix entrenatzaileak** (5); **real madrileko entrenatzaileak** (6); **realeko entrenatzaileak** (46); **realeko entrenatzaileak atzo** (6); **rijkaard entrenatzaileak** (6); **taldeko entrenatzaileak** (10); **tauko entrenatzaileak** (8); **txakartegi entrenatzaileak** (4); **uste du entrenatzaileak** (5); **valverde athleticeko entrenatzaileak** (17); **valverde entrenatzaileak** (18); **wenger entrenatzaileak** (4); **woodward entrenatzaileak** (4); **zien entrenatzaileak** (4); **zion entrenatzaileak** (5); **zuen entrenatzaileak** (60); **zuen osasunako entrenatzaileak** (5); **zuen portlandeko entrenatzaileak** (5); **zuen realeko entrenatzaileak** (7); **zupo ekisoain entrenatzaileak** (12)

alvarez entrenatzaileek (4); **athleticeko entrenatzailearen** (6); **baina entrenatzailearen** (4); **bere entrenatzailearen** (4); **bi entrenatzaileek** (6); **da entrenatzailearen** (4); **delmas entrenatzaileek** (5); **entrenatzailearekin hitz** (4); **entrenatzailearen arabera** (7); **entrenatzailearen erabakia** (7); **entrenatzailearen etorkizuna** (4); **entrenatzailearen iritziz** (14); **entrenatzailearen konfiantza** (13); **entrenatzailearen lana** (9); **entrenatzailearen ustez** (6); **entrenatzailearena ere** (4); **entrenatzaileek ere** (4); **entrenatzaileek eta** (4); **entrenatzaileek ez** (8); **entrenatzailerik onena** (4); **entrenatzailez aldatu** (4); **eta delmas entrenatzaileek** (5); **eta entrenatzailearen** (7); **eta entrenatzaileari** (4); **eta entrenatzaileek** (9); **eta entrenatzaileen** (4); **eta lagisquet entrenatzaileek** (6); **ivanovic entrenatzaileari** (4); **jokalari eta entrenatzaileek** (5); **lagisquet entrenatzaileek** (6); **realeko entrenatzailearen** (4)

---

entrenatzale ik **entrenatzaile**.

---

entrenatze *iz* jarduera jakin baterako, eta eskuarki kirol batean jarduteko ariketa egokiak egitea.

Zinez hori izan zen **entrenatze** bat alemanen eta italianoentzat, bigarren gerla mundiala hasi baino bi urte lehenago. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Denbora asko kentzen du **entrenatzeak**, eta klaseetara eta ez naiz behar hainbat joaten. Berria - Kirola

Jendeak arreta handiagoa jartzen dio zapatila hobetzeari **entrenatzeari** baino, eta ia ez da ikusten zein dagoen ondoen. Berria - Kirola

Entrenatzearekin soilik konformatu behar izan dut nik, baina benetan diot, igandean jokatu behar nuela sinetsita aritu naiz lanean entrenamenduetan aste oro. Berria - Kirola

---

entrepresa *iz* enpresa.

Astean sei orenez **entrepresa** batekin lan egiteko. Berria - Harian

Garai hartan **entrepresak** inbertsio handiak egin zituen Errusia aldean. Iban Zaldua

-Denok ongi dakizuenez, nire ondasunen parte handi bat jarri diat **entrepresa** honetan. Edorta Jimenez

Hamar urte geroago -ezkondua ordurako, eta eraikuntza **entrepresa** batean ingeniari-, kotxea autopista baten biaduktoan aparkatu eta bere burua bota zuen. Bernardo Atxaga

Hau ofizioz **entrepresan** ari da laborantxako lan mota ainitzetan eta ezagutua ere da aski urrun. Herria

Audela Charles Etxandi **entrepresaren** jabeak deklaratü dü partaideak txerkatzen zütüala. Herria

Bere mailako aitzinkontü txipienarekin, Atharratzek leküko **entrepresen** süstengüa ardiesten dü. Herria

---

entrepresari *iz* enpresari.

Minière et Houillière Dûpaquier et Cie.-tik bota zuten gure birraitona, eta hantxe amaitu zen bere **entrepresari** karrera. Iban Zaldua

Zilbor eta Pikor ttunttunero famatiak, Kakile Zekenena **entrepresaria**. Jose Angel Irigaray

---

entresaka 1 *iz* bakanketa.

Pilota aukeraketa egun ere zehaztuta dago: gaur bertan egingo dute **entresaka**. Berria - Kirola

Jose Miguel Leatxe botilleroa lagun hartuta, denbora hartu zuten Atano XIII.ak otarrean jarritakoen artean **entresaka** egiteko, eta Aspe bere enpresan horren ohikoak diren larrua bueltatutako bi pilota aukeratu zituen: 104,6 eta 102,5 gramokoak. Berria - Kirola

Ideiak etorri ahala bota eta magnetofonoan grabatu, eta gero ideia interesgarrienen **entresaka** egin. Iñaki Iñurrieta

Hortik antzinagotiko datuak, liburu eta hainbat apuntetan idatzitakoak beharko izan, horietatik **entresaka** eginez lortu izan direnak. Pello Zabala

Elur bola erraldoia bilakatzen du denborak memoria, baina, egiatan, xehetasun eta bitxikerien artean **entresaka** egiteko ahalmena irendu ondoren. Pako Aristi

Pirinioetako lehen etapa, lehen malkar pikoak, eta lehen **entresaka**: Jan Ullrich atzera US Postalen erritmoa jarraitu ezinda (2: 30era helmugan), Tyler Hamilton hasiera-hasieratik atzera US Postalen erritmoa jarraitu ezinda (3: 27ra helmugan), eta askoren ahotan zebiltzan beste hainbat ere onenekin aurrera egin ezinda (Oscar Sevilla, Roberto Heras...). Berria - Kirola

Esana dut beste batean, nola santutegi oparo eta abarotsua bizi zuen kristau herriak sasoi batean, azken Kontzilioak **entresaka** eta inausketa kupidagabea egin zuen arte. Pello Zabala

Mailako bere torneoa antolatu zuen hasiera batean, eta **entresaka** handiena egin ondoren egin zuten biek bat. Berria - Kirola

2

"Entresakak", alegia, gauero zeldetan azaldu, eta norbait aukeratzea, hilerrira eraman eta harresiaren kontra fusilatzeko. Ramon Saizarbitoria

---

entreteniarazi, entreteniaraz, entreteniarazten *(corpusean **entreteni arazi** soilik)* du *ad* entretenitzera behartu.

Batzutan, parrat botatzen zuen, mundua dardarka ipintzeko moduko puzker luze horietako bat, ni **entreteni arazteko**, esanez: [...]. Patziku Perurena

---

entretenibide *iz* entretenitzeko bidea.

Filosofiak filosofia, eta entretenimendu solasak **entretenibide**, bai esan daitekeela gezur-deskuidu handirik gabe, eguratsa egurasteko eta egurasgarri dugula benetan euskaldunok. Pello Zabala

---

entretenigarri **1** *iz* entretenitzen duen gauza. ik **entretenimendu**.

Ezertarako gogorik eta deusen pozik ez dagoenean... atsoak elizan eta agureak diru-kontatzen: orobatsu dira bi **entretenigarri** horiek. Iñaki Segurola

Bi pertsonak bat egin edo bat izatera datozelarik, **entretenigarririk** edo bizi-betegarririk asko aurki lezakete: txakur bat erosi, edo etxezulo bat, furgoneta bat. Iñaki Segurola

Normala iruditu zitzaiola gaixoak egoera hartan **entretenigarriren** bat bilatzea, eta, aukeran, errealitatetik ihes egiteko, fikziozko munduren batean murgiltzea. Imanol Zurutuza

Haien ekarririk beteena, **entretenigarritik** etsigarrira daraman jauzi erabatekoa, pertsonatxo bat (edo gehiago) ekartzea da, dela bietako baten sabeletik edo dela umezurztegi globalean erosita. Iñaki Segurola

Jendearen jardunak dira, mingain arinen **entretenigarriak**, biderik egingo ez duten maiseoak. Anjel Lertxundi

Futbola ere **entretenigarri** egokia zen des-pentsatzeko, hau da, kaskarrari buelta erdirik ere ez emateko. Unai Iturriaga

Entretenigarri handia ekarri didate Antonen begi argiek. Hasier Etxeberria

2 *izond* entretenitzen duena.

Haurtzaroko kontuak umorez kontatzen dizkigu liburu **entretenigarri** honetan. Pablo Sastre

Ikasleak komeria **entretenigarri** bat ikustera balihoaz bezala hasi ziren sartzen, presakatuz eta elkarri bultza eginez. Josu Zabaleta

Erruz edaten zuen: ohitura **entretenigarria** irizten zion emakumeak. Mirentxu Larrañaga

Kontu pollit jakingarri eta **entretenigarri** franko badakar. Patziku Perurena

Telebista piztu nuen, baina ez zegoen gauza **entretenigarririk** ikusteko. Ramon Saizarbitoria

Askatasuna, bai, baina askotasuna da hor berez axola duena, askotasunaren produkzioa, gizabanako eta gauzabanako askoren askotasun **entretenigarria**. Iñaki Segurola

Bokarta garaia zen, portuan egonean egoteko **entretenigarriena**. Ramon Saizarbitoria

Entretenigarria oso. Irene Aldasoro

Arras **entretenigarri** ari gintzaizkien bihurtzen hamaiketako aspergarria. Aingeru Epaltza

Hogeita hamar birjina biluzik dantza egiten zuten haren **entretenigarri**. Juan Garzia

3 (adizlagun gisa)

Pieza labur bat jokatu dute han bildutakoon **entretenigarri**. Anjel Lertxundi

Lehendabizi andregai pobre bat eduki behar da, andereño pinpirin bat, gu bezalakoa, **entretenigarri**, eta gero diru pixka bat duen emakume bat bilatzen da ezkontzeko. Josu Zabaleta

Dudarik ez, eskupilota ere, beste joko asko bezala, gizarte osora zabalduko zela gero, halamoduko jendearen eskutik jauntxoen **entretenigarri**. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
entretenigarri bat (5); **entretenigarri eta** (3); **entretenigarria da** (3); **entretenigarria izango** (3); **entretenigarriren bat** (3)

---

entretenimendu *(orobat **entretenimentu** g.er.)* **1** *iz* entretenitzea; entretenitzen duen gauza; entretenimenduari loturiko industria. ik **entretenigarri**.

Kolonoen **entretenimenduetako** bat zera da: etxeetako terrazetatik merkatuan erosketak egiten ari den jendea tirokatzea. Berria - Mundua

Ez naiz, ezta ere, negarrez hasiko munduak literaturari soilik alde pragmatikoa - **entretenimendua** - eskatzen diola ikusita. Anjel Lertxundi

Donostiar izaera alaia da, jostagarria, eta edozein xehetasunetan bilatzen ditu dibertsioa eta **entretenimendua**. Askoren artean

Espezializazioaren aukera badagoela aitortu arren, Argia-k «informazioa, analisia eta **entretenimendua**» jorratzeko asmoak dituela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Entretenimendua, informazioa eta pertsuasioaren arteko bereizketa aldarrikatzen tematuta, kaka esplikatzen ari gara. Joxerra Garzia

Entretenimendu bezala helduko dio gaiari, eta, ardien ipuina edo belarraren poema gogoratzean bezala, aldarte onarekin. Bernardo Atxaga

Gau haietan, nire **entretenimendua** umearentzako izenak pentsatzea izaten zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaixoaldiko erretiroan, beste **entretenimendurik** ez eta, Garibaik ere, Loiolakoak bezala, liburuak ditu ia lagun bakar. Anjel Lertxundi

Museoetan-eta sarri izaten dudan **entretenimendu** batek jostarazi ninduen atzokoan ere pixka batez: museo-zaintzaileei erreparatzea gustatzen zait. Anjel Lertxundi

Segidan, **entretenimenduak** bizitu egingo zaitu, eta insomnioa ezinbestekoa bihurtuko zaizu. Anjel Lertxundi

Ez zait **entretenimendurik** faltatu atzera-aurrera dabilen jendea aztertzen. Anjel Lertxundi

Entretenimenduko nobelak dira, denborapasakoak. Berria - Kultura

Zaintzarako zein informazio eta **entretenimendurako** bideo sistema. Berria - Ekonomia

Iluntzean, afalostean, elkarren ondoan esertzen dira sofan berriak ikustera, Lucy eta bera, eta ondoren, jasateko modukoak badira, **entretenimenduzko** programak ere bai. Oskar Arana

Iaz bi industria sektorek baino ez zuten sortu enplegua: farmazia, perfumeria eta **entretenimendua** (%0,5) eta elikagai industria (%0,4), bestetik. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Entretenimendu handia zen. Bernardo Atxaga

Ez zen sekulakoa izango, ez bereziki jostagarria ere, baina bai jendearentzako **entretenimendu** atsegingarria. Mirentxu Larrañaga

EAEko estatutu erreformaren inguruko agerraldiei buruz **«entretenimendu** politikoa» baino ez direla adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Ez genuen **entretenimendu** makala asmatu, bide gero eta aldapatsuago hartan gora gindoazela. Joxe Austin Arrieta

Entretenimendu hutsa diruditen diskurtsoak ere pertsuasiboak direla ohartarazi zigun Aristotelesek. Joxerra Garzia

Nik nahi baino **entretenimendu** laburragoa hartzen nuen, ordea, liburuekin edo Adak ekarritako walkman txikian entzuten nuen musikarekin **Entretenimendu** ezin hobea, jakien zain egoteko, errietak eramateko, gurasoen jardunaz beste egiteko. Anjel Lertxundi

Zeren joko haiek baitziren haren **entretenimendurik** gustukoenak. Joan Mari Irigoien

Nire helburua kalitatezko **entretenimendua** egitea da beti. Berria - Kultura

Ikusmiran egotea -denborapasa arintzeko modu bat baino ez, ordu arte- gure itxaronaldietako **entretenimendu** nagusi bilakatuko zen. Pedro Alberdi

Londresen afal-osteko **entretenimendu** modakoa bihurtzen ari omen da teleskopiotik behatzea. Berria - Gaiak

Gauero izaten ziren oinazturak, hori bai, eta haietxek gure arratseroko **entretenimendu** bakarra. Joxe Austin Arrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

«**Entretenimendu** sektoreko nagusitza» lortu nahi duela jakinarazi dio Michael Eisner WDko egungo lehendakariari. Filosofiak filosofia, eta **entretenimendu** solasak entretenibide, bai esan daitekeela gezur-deskuidu handirik gabe, eguratsa egurasteko eta egurasgarri dugula benetan euskaldunok. Berria - Ekonomia

Zinematik jolas parkeetara hedatzen den **entretenimendu** inperioa. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gero, zerbait egin beharra, loa eragingo dizun buru-**entretenimenduren** bat bilatzeko premia: liburu baterako materialak izan daitezkeenei bueltaka eta bueltaka hasten zara. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta entretenimendua (3)

---

entretenimentu ik **entretenimendu**.

---

entretenitu, entreteni, entretenitzen **1** da *ad* denbora igaro, eskuarki modu atseginean.

Jenerala kupeldegian **entretenitu** zen ia goiz osoan. Xabier Olarra

Lagunekin **entretenitu** naizela uste du. Anjel Lertxundi

Horrexekin **entretenitzen** naun-eta! Anjel Lertxundi

Irten hadi ahalik gutxien, eta, bitartean, ea liburu hauekin **entretenitzen** haizen. Anjel Lertxundi

Gauzak egin eta egin, ea **entretenitzen** diren... eta batere ez. Koro Navarro

Hemendik aurrera hire asmazio horrekin **entretenituko** duk mundua. Anjel Lertxundi

Pasilloan hona eta hara zebiltzan bidaiarien ibilerekin **entretenitu** nintzen, nork nora jotzen zuen begira. Anjel Lertxundi

Jenerala kupeldegian **entretenitu** zen ia goiz osoan. Xabier Olarra

Uste ez bezala korapilatu zitzaizkidan ametsa eta gertakizunok buruan, etxera itzuli eta gero ere ezin bainuen gogoratzeko seta baztertu, ez eta segundo bakar bat ere beste zereginetan **entretenitu**. Anjel Lertxundi

Mundua konpontzen **entretenitu** nahiago duten atzerakoi edo bertangoxozaleak. buruaren parean jarritako pantailatxoei esker film pornografikoak ikusiz **entreteni** daiteke bat. Iñaki Segurola

Euskararen agonia herriz herri dabiltzan antzerki eta pastoralei begira **entretenitzen** da sud-ouesteko iparraldean. Iñaki Segurola

Aretoz areto ibili nintzen, begi-kolpe arinak emanez bertako koadroei, eta gogoa gero eta **entretenituago**. Anjel Lertxundi

Kontua zen eskifaiakideak aski **entretenituta** egoten zirela istorio haiek irakurriz. Harkaitz Cano

Ikaragarri **entretenitzen** da gaur gaztea mundua ezagutzen. Iñaki Segurola

Ondo etorriko zait aldizkaria, zertxobait bederen **entretenitzeko**. Pako Aristi

Eskuz idatzitakoa zenez, ez nuen konputagailu aurrean eserita pantailara ekartzeko ahaleginean obsesioa erritualki **entretenitzeko** modurik ere. Ramon Saizarbitoria

Emakumeak pentsatu baitzuen neska zenbat **entretenituago** egon orduan eta lasaiago egingo zutela beraiek asmoa zuena. Felipe Juaristi

2 du *ad* denbora igaroarazi, eskuarki modu atseginean.

-Jendea **entretenitzeko** asmatu diten zootropoa, ez jendea arranguratzeko. Anjel Lertxundi

Eta irudipena dut bereak eta bi egiten ari zela gu **entretenitzeko**. Urtzi Urrutikoetxea

Era horretan, Hurmizahk gau osoan **entretenitzen** zuen Taibele. Koro Navarro

Entretenitu nau, bai, irakurtzen jardun dudan bitartean ondo pasatu dut. Berria - Kultura

Hari begira **entretenitu** nuen itxaronaldia. Anjel Lertxundi

Beharrik Sierichstrasseko bi neskek behar den bezala **entretenitzen** ninduten. Fernando Rey

Bertan tertulian ari ziren kamioizale-itxurako bospasei gizon builosoen bizitza-pasadizoak imajinatuz **entretenitu** nuen bazkalordua. Anjel Lertxundi

Karlistei Gorritirako bidea erakustea zen gehien **entretenitzen** gintuenetako bat. Arantxa Iturbe

Niri laguntzeagatik -edo bere burua zer edo zertan **entretenitzeagatik**, berdin dio-, liburu zale bihurtu da. Anjel Lertxundi

Aurrez Lizardiren liburuarekin bezala gertatzen zitzaidan: zailtasunak **entretenitu** egiten ninduen. Bernardo Atxaga

Haurrak jostailu harekin negu luzeko ordu ilunak **entreteni** zitzan. Anjel Lertxundi

Inon irakurria baitut bere bakardadea **entretenitze** aldera hasten dela izua izenak asmatzen. Anjel Lertxundi

Ez zuen liburuaren laguntza modukorik aurkitzen bere baitako kalapita neketsu haiek **entretenitzeko** garaian. Anjel Lertxundi

Helburuak, esan bezala, hizkuntzatik kanpo daude: elkar kontsolatzea, inor txunditzea, zirikatzea, **entretenitzea**... Joxerra Garzia

3 irud/hed

Gosea **entretenitzeko** gazta, gurina eta patea ekarri didate. Edorta Jimenez

Entsalada batekin **entretenitu** dut sabela. Anjel Lertxundi

4 zerbait egiten denbora eman.

Hitz gutxitan esplikatu zidala dena, garrantzirik gabeko pasadizoetan **entretenitu** gabe. Anjel Lertxundi

Linterna piztu eta aurrera egin zuen sartu berriak, alboetara begiratu gabe, inon **entretenitu** gabe, itxita zegoen armairuaren ate pareraino. Joxemari Urteaga

Burdinazko ate tzarreko pintura zaharrean denborak marraztutako zirriborroen eta marren azterketan **entretenitu** du postariak itxaro-aldia. Berria - Kultura

5 (era burutua izenondo gisa)

Iñigo eta Ane ondoan, berriketa **entretenitu** batean. Unai Iturriaga

-Oso **entretenitua** egin zait bidaia zuekin berriketan -esan zigun mutikoak-. Juan Luis Zabala

· Andres, kezkaturik, **entretenitu** -itxurak egiten saiatzen zen. Josu Zabaleta

6 mantendu; zaindu.

Hain juxtu ere, setioa hasi zenetik Domingoren egitekoa zen haien metxak beti idor **entretenitzea**, tiro egiteko premian huts egin ez zezaten. Aingeru Epaltza

Eskola publikoa: Galde batzu eginak izan dira informatika tresneria **entretenitzeko** eta margotze batzuk egiteko. Herria

Hartua izan zen deliberoa 1971n bide eta eremuen **entretenitzea** herriaren gain izan zadien. Herria

7 (era burutua izen gisa)

Eta kontuan hartu gabe Domingok-eta Lisboan ikusi zituzten aitonen semeak, Espainiako handiak, zaldunak eta fortunakoak; Erregeren **entretenituak** ei ziren haiek denak. Edorta Jimenez

Baina ba al dakik Armada honetako asko eta asko Erregeren **entretenituak** direna? Edorta Jimenez

8 irud/hed

Hitz gutxitan: orduak **entretenituko** nituen. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batekin entretenitu (3); **entretenitu eta** (3); **entretenitu nintzen** (9); **entretenitu nuen** (3); **entretenitu zen** (3); **entretenitze aldera** (3); **entretenitzen da** (3); **entretenitzen ninduten** (3); **entretenitzen zen** (3); **entretenitzen zuen** (4); **eta entretenitzeko** (3)

---

entretenitzaile *izond* entretenitzen duena.

Burutazio zelebre hura zela medio, "haize **entretenitzailea"** deitzen omen zioten geroztik. Patziku Perurena

---

entretenitzearren *adlag* entretenitzeko.

Kontalari atsegin eta alai baten gisan mintzo da; atzerritik, leku-denbora urrunetatik, etorritako adiskidea **entretenitzearren** pasadizoz jositako antzinako ixtorio baten xehetasun interesgarrienak aletzen ari balitz bezala. Xabier Olarra

Entretenitzearren hainbeste gezur esan nion ezen ezin bainintzen xuxen-xuxen habiara itzuli. Fernando Rey

Bizkor zihoan, berandu bailebilen, hitz egiten inorekin ez **entretenitzearren**. Pedro Alberdi

Mahaian neuzkan gauzei begiratzeari ekin nion, **entretenitzearren**, noski, eta nire paperak ikusi nituen, nire luma eta boligrafoak, hiztegiak, kafearen kikara hustua, nire amuletoak, Gopegin jasotako itsas triku baten fosila, letra handitan erne! jartzen zuen fitxa bat. Bernardo Atxaga

---

entropia *iz* magnitude termodinamikoa, sistema baten molekulen desordena maila adierazten duena.

Entropiak sistema baten desordenaren neurria ematen du. Fernando Morillo

Termodinamikaren bigarren legeak dioenez, **entropiak** (desordenak) beti egingo du gora sistema itxi batean. Fernando Morillo

Amore ere ez zuen eman, horratik, niri berriketa eginarazi arte, hainbat gairi buruz: nabigazioa, radarra, lurbiraren kurbadura, elektrizitatea, **entropia**, azkeneko hau berak inoiz entzun gabeko gauza, nonbait. Joxe Austin Arrieta

2 desordena.

Erlojuen modukoak dira, desordena, aldaketa eta **entropia** gutxi sortzen dute, eta gizarteak berdintsu jarraitzen du belaunaldirik belaunaldi, ia historiarik gabe. Joseba Sarrionandia

Non ote da geure gazte denborako musa, sexuaren jainkosa helezin hura? **Entropia** madarikatuak ez du ezer barkatzen, ezta poparen behirik sakratuenak ere. Patxi Iturritegi

Urte haietako eskulturagintza aurrerakoiena imitatzen saiatzen zen tramankulu hori ez da objektiboki atsegina, baina, ez dakit zergatik, halako maitasuna genion biok, eta, haren hutsune eta tarte oteizar-metafisikoak hautsez libre gordetzea batere lan erraza ez bazen ere, saiatu, saiatzen nintzen inguratzen zuen **entropia** geroz eta handiagoaz libre edukitzen. Iban Zaldua

---

entropiko *izond* entropiarena, entropiari dagokiona.

Bizkaia hogeigarren mendean zehar, gure historia bero **entropikoaren** ilustrazioak. Joseba Sarrionandia

-Guztiz **entropikoa**. Karlos Linazasoro

---

entsaiatu *(ETCn **188** agerraldi; orobat **ensaiatu** ETCn **17** agerraldi; cf **entseaiatu** ETCn **187** agerraldi)*, entsaia, entsaiatzen **1** du *ad* entseguak egin. ik **entseiatu**.

Musikariak **entsaiatzen** ari dira, eta soinua gogor-gogor dator anplifikatzaileetatik. Javi Cillero

Gogor **entsaiatu** zuten Jexuxek eta Ximonek, horrelako ekitaldiak zituztenean beti egiten zuten moduan. Xabier Etxabe

Etxean libre zegoen une guztietan **entsaiatzen** zuen Pedrok, pieza berriak ikasteko. Pako Aristi

Hiru aldiz **entsaiatu** omen zuten deklarazioa. Berria - Euskal Herria

Batere **entsaiatu** gabe joaten nintzen erromerietara, ongi moldatzen ginen eta ez zegoen entsegu beharrik. Berria - Kultura

Astebete lehenagotik hasi zen **ensaiatzen** jendea, maisua direktore zutela. Matías Múgica

Tresna estaltzeko zorrorik ere ez zeukan: horrela bidaietan ere **entsaia** zezakeela esaten zuen. Pako Aristi

Goizean, atzoko argixinta berberarekin abiatu dute kantu-sinfonia ondo **entsaiatua**. Pello Zabala

• **2** da *ad ipar* saiatu.

Zuen haurrak ez dira zuen haurrak; biziko bidean elgarri lotuak balinbazarete ere, ez zaizte horien jabeak; beraz, ez **entsaia** zuen idurikoak bilakarazten. Menane Oxandabaratz

Elgarrekin egiten ditugu formakuntza egunak, ardiari buruz, lurrari buruz bai eta ongarriari buruz ere, arrapostuak elgarrekin atxemaitera **entsaiatzen** gira. Herria

Gaurko egoerari begira **entsaiatu** da Manexen iharduera nolako izan zitekeen erraiten, haren sinesmena, Euskal Herria eta mundu zabala nolatsu diren ohartarazi ondoan, guziz harkorra izan da Iruñearraren solasaldia. Herria

Eta, biziak ez baitu sobera gibelera begiratu nahi, **entsaiatuko** dira ere, hor izanen direnak beren aireekin eta hitzekin 5 urte huntan mundu huntarik beren artetik joan direnei, pentsatzea. Herria

---

entsaimada *(ETCn **9** agerraldi; orobat **ensaimada** ETCn **8** agerraldi) iz* espiral formako hostopila.

Eskuan hiru **entsaimada** zekartzan, kartoizko kaxa zuri poliedrikoetan txukun-txukun bilduak. Patxi Iturritegi

Hamaiketakoaren tenorean segitu die: Juliak kafesnea eta **entsaimada** hartzen ditu egunero. Aingeru Epaltza

Ametsa, harrigarriki, oso antzekoa izan zen: haiek hoteleko tabernan, kafea eta kruasanak edo pastak edo **ensaimadak** hartzen, eta ni kanpoan, amorruz irakiten. Iban Zaldua

-Ama, ez naiz jada umea, eta gainera **entsaimadak** ez ditut batere gogoko. Patxi Iturritegi

Entsaimada, Bilboko erara. Berria - Kirola

---

entsaio *(ETCn **198** agerraldi; cf **entsegu** ETCn **11.001** agerraldi) iz* treatro lan, musika lan edo kideko bat praktika gisa

egitea benetako emanaldia baino lehen. ik **entsegu**.

Jexux zain izango dut honezkero **entsaioa** egiteko. Xabier Etxabe

Jaiero hasi nintzen horrekin **entsaioak** egiten. Koldo Izagirre

Inaugurazio festaren **entsaioa** omen dago hotelean. Bernardo Atxaga

Garaiz bukatu dugu gaur **entsaioa**, bisitariak etortzerako dena prest egotea komeni baita. Xabier Etxabe

Estreinatu behar zuten antzerki obrarako **entsaioak** antzokian egiten zituzten eta bertara gerturatzeko esan zidan. Jasone Osoro

Entsaioak garajean, eta etxean ere bai. Xabier Etxabe

Inork ez zuen Nancy Lehenago, urteetan larunbat-igandero hemen gaindi ibili bainaiz, teatro **entsaioetara** jiteko.ikusi, egun batean **entsaiora** agertu zen arte. Menane Oxandabaratz

12 emakumeek gaur arratsaldean egingo dute lehen **entsaioa** Gaztelubidekoekin -Etzi, baina azken **entsaioa** dekoratu eta guzti egin nahi genuke. Berria - Euskal Herria

Hor **entsaio** labur bat eginen da meza aintzin. Herria

Jexuxek urteetan bildutako piezak ikasteko asmotan etortzen zen, eta **entsaio** luzeak egiten zituzten. Xabier Etxabe

Bizikletan eramaten zuen **entsaio** lekura. Pako Aristi

Gure etxean bolada luzea egin zian aiarrak automobilik ez zuen garaian, dantza- **entsaioak** ostiraletan berandu bukatzen genituenean. Xabier Etxabe

---

entsalada *(orobat **entselada** g,er.)* **1** *iz* eskuarki barazki gordinekin prestatzen den janaria, gatz, olio eta ozpinarekin maneatzen dena.

Haragi gutxi egina eta **entsalada**. Xabier Olarra

Menua bakarrik: zizka-mizkak, **entsalada**, arrain-zopa eta bisigua edo azpizuna. Urtzi Urrutikoetxea

Dionisos plater beteko **entsalada** jaten ari zen: letxuga, tomate, arto, berenjena eta ez dakit beste zenbat koloretako gauzarekin. Unai Iturriaga

Arropa izerdituak eranzten ari zen komunean, Dionisosek sukaldean **entsalada** bat prestatu bitartean. Unai Iturriaga

Entsalada batekin entretenitu dut sabela. Anjel Lertxundi

Ohartu nintzenez, ikustun normalen erara hasi zen jaten, **entsaladako** tomate zatiak xuxen ziztatuz. Xabier Olarra

Letxua **entsaladan**, espinakak eta letxua egosia: ez dago besterik. Josu Zabaleta

"Horixe besterik ez dakite egiten batzuek: bazterrak txikitzen", esan du **entsaladari** ozpin gehiegi bota dion batek. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Entsalada** zerbitzeko koilararekin ari zara okela zatitzen! Koldo Izagirre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Entsalada mistoa eta atuna tomateaz aukeratu genuen, eta edateko, sagardoa. Joxemari Iturralde

Entsalada xume bat, zopa hotza eta purez lagunduriko txerriki xerratxo bat izan da agintariek eskaini diguten oturuntza. Edorta Jimenez

Despistatzeari ekin nion **entsalada** txinarra jaten nuen bitartean. Joxemari Iturralde

Aukera handian zeuden **entsalada** exotikoak. Joxan Elosegi

Alderdi gastronomikotik, olio ederra baliatzeak **entsalada** "zaporedun"ari eransten dion ahogozagarria esker on-onekoa da. Edorta Agirre

Pastelak, arkumea, **entsalada** eder horiek. Jokin Urain

Afariko **entsalada** oliorik gabekoa izan zen. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi **entsalada**-ontzi ederretan. Aitor Arana

Faiantzazko **entsalada** ontzi batzuen hondoan. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauetan patatak haragi saltsaren ordezkoarekin eta erremolatxa **entsalada** jaten dugu beti. Josu Zabaleta

Katuarraina paderako koipetan zirtaka, eta beren burua ikusi zuten patata- **entsalada** zerbitzatzen platerean. Anton Garikano

-Otarrain- **entsalada** bukatu dela dio. Lopez de Arana

Massenako Mandarin jatetxean bazkaldu ginen eta Txina irentsi nuen, udaberriko borobiletan, kizkira **entsaladetan**, urdeki saltsetan, -George, niretzat eskatu otarrain erdi bat egosita eta aguakate- **entsalada** bat! Itxaro Borda

Mahaian eseri eta hanburgerrak, atun- **entsaladak** eta griselan berotutako gaztazko sandwichak eskatu genituen. Oskar Arana

Arroz eta babarrun **entsalada** prestatu dut afarirako. Joseba Sarrionandia

Intxaur eta ezti **entsalada** prestatu zion. Eider Rodriguez

Hasteko, urdaiazpikorik onena, txistorra eta marisko **entsalada**. Berria - Kirola

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Txosna batean **entsalada**-oilasko ogitarteko bat eskuratu nuen. Itxaro Borda

6 irud/hed

Gobernu «sendoa» izatea beharrezkotzat jo zuen, batik bat beste aukera batzuei aurre egiteko; hala nola «Alderdi Sozialistak eta beste batzuk osatzen duten **entsaladari** aurre egiteko». Berria - Euskal Herria

Italiako **entsalada** linguistikoaren osagai nagusia italiera da, baina ez bakarra. Anjel Lertxundi

Entsalada nahasi horretan, denetik izan zen, olioa aukera eta gerokoen epemugak gehitu zuelarik: 1.800 milioi euroren akzioak pasa salerosi ziren. Berria - Ekonomia

Moncloako sukaldariak behar bezala moldatzen ari direla inkestaren emaitzen taula, Aznarren erara sukaldatutako datu- **entsalada** helarazteko. Berria - Euskal Herria

Euskaldunon literatur **entsaladari** ere ez letorkioke batere gaizki erabili dituzten eta are erabiltzen ari diren errezeten ezagutza. Anjel Lertxundi

Sakonetik sortzen den hitz- **entsalada** bat. Jon Alonso

*7 **entsalada-ontzi** (orobat **entsaladaontzi**)*

Mahaiaren erdialdean, bi **entsalada-ontzi** ederretan entsalada are ederragoak zeuden, edonork nahierara har zezan. Aitor Arana

Muskuilu egosiak zituen saltzeko, ur garbian igerian, faiantzazko **entsalada ontzi** batzuen hondoanPixka bat lehenago mahaikideek hustutako platerak eta **entsaladaontziak** erretiratu zituenez gero, mahaiaren erdi-erdian jarri zuen erretilua. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

entsalada bat (10); **entsalada edo** (3); **entsalada eta** (12); **entsalada jaten** (5); **entsalada jaten ari** (3); **eta entsalada** (8); **patata entsalada** (3)

---

entsaladatxo *iz adkor* entsalada.

Ahalegina igartzen da, ostera, **entsaladatxoa**, zopa, arraina patatekin eta barazkiak ez ezik pasteltxo bat ere atera digute eta. Edorta Jimenez

Presta zezaketen **entsaladatxo** bat eta patata batzuk jarri egosten, gainera bazegoen atun lata bat irekitzea. Joxemari Iturralde

---

entsaladilla *iz* barazki egosi eta zatikatuak nahasiz preatatzen den janarri hotza, eskuarki maionesarekin maneatzen dena.

Osakidetzak jakinarazi duenez, Donostiako Amara Berri eskolan **entsaladilla**, eta San Patricion natilladun merengea izan ziren salmonella kasuen eragileak. Izan zitekeen, baita ere, gauean afaltzeko kafetegi hartan zerbitzatu zioten **entsaladilla** errusiarra, izan ere ez baitzegoen oso katolikoa, baina ezin zuen segurtatu. Berria - Euskal Herria

---

entseatu, entsea, entseatzen *(orobat **entsegatu** g.er.)* **1** da *ad* saiatu.

Anitz dira **entseatu** direnak eta nehork ez du erreusitu. Aurelia Arkotxa

Entseatu zen Indurain, bainan debaldetan. Herria

Apirilean, Espainolak **entseatzen** dira Aldudeko balean sartzera. Michel Oronoz

Izkribuak ez zioena Arburuak jakinarazi zigun, Etxetoren ahotik aditurik: ministroak libratzera edo erreboltariei oldartzera **entseatuz** gero, indar aski bazutela gogor ihardukitzeko, baita Garrüze goitik beheiti porroskatzeko ere. Aingeru Epaltza

-Izen hori aldatzera **entseatu** nintzen etxea erosi nuelarik. Hasier Etxeberria

Gehexan Jaurenea, oroitzapenera ekartzen zion aurpegi hartan, Bittor maitearen hazpegi berezi zerbaiten aurkitzera **entseatzen** zen. Elena Touyarou

Bere eskuina goiti eta beheiti doalarik eta bere ezkerreko eskua baxuen erritmoa sendotzera **entseatzen** delarik, tresnatik ateratzen den doinurako baizik ez du belarririk. Xabier Montoia

Kuraiosarena egitera **entseatu** nintzen eta fermuki erran nion: [...]. Daniel Landart

Lo xorta baten egitera **entseatzen** gara. Marzel Etxehandi

Etsaia beti **entseatzen** baita, handik eta hemendik, denboraren poderioz gure higatzera. Filipe Bidart

Luzaz **entseatzen** dira arrazoinka, baina mutikoak ez du deusik entzun nahi. Michel Oronoz

Ikusten da nola zatikatua zen Frantzia, nola hasi den erresistentzia, nola **entseatu** den Jean Moulin denen biltzen. Herria

Lagunen gogo-bihotzen azkar atxikitzen **entseatzen** niz. Michel Oronoz

Turismoaren eragileek hori sendi dute, eta informatzen **entseatzen** dira. Berria - Kultura

Theok paltoa estekatu zuen, papoan dilindan zerabilen LAPDko sherif plaka, oihal zuri zatiaz kukutzen **entseatu** zela. Itxaro Borda

Brauki airatzen **entseatu** zen hontza, baina astunki lurrera panpalaharatu. Itxaro Borda

Musikan **entseatu** nintzen... ez naiz arribatzen ahal jotzera. Menane Oxandabaratz

Aipatutako bi aurrelariek gol bana egin zuten; ederrak biak, entrenamenduetan aspertu arte **entseatzen** diren horietakoak. Berria - Kirola

Ez da erraz bi hitzez bakarrik bakardadearen mundua aipatzea, baina halere **entseatuko** naiz. Filipe Bidart

Entseatu zen euskarazko poesiari denbora haietan Italian gaindi loratzen ziren mugimenduen joeren txertatzera. Herria

Entseatu baino gehiago, tematu. Xabier Montoia

2 (du aditz gisa) saiatu, saiakuntza egin; probatu.

Estatu-kolpe bat **entseatu** zuten Errepublikaren aurka. Koldo Izagirre

Nire hipotesiaren arabera, goian **entseatu** dudan gertakarien berreraikuntzan iradoki dudan bezala, Edurne berehala ohartu zen argazki hura nirea zela, Antonioren alaba txikiarena alegia. Iban Zaldua

Behar zuen arma horietarik bat **entseatu** Txinatar militar batzuen aitzinean haiei saltzeko dudarik gabe. Herria

Egia da parioa ez dela erraza, baina **entseatu** nahi dugu. Berria - Kultura

Ortega-k **entseatzen** duen askaera entsegua da guretzat. Joxe Azurmendi

Asschertarrek bide berri bat ireki zuten, esmeraldak lantzeko erabiltzen zuten teknika **entseatuz** diamanteak lantzerakoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gauza bereziak **entseatzeko** antzoki berria. Berria - Kultura

Taula gainean egin daitekeen oro **entseatua** dut, antzerkia, musika eta beste.Datorren urtean jokatuko da berriz munduko xapelgoa eta karia hortara Lemerre entrenadoreak **entseatu** ditu jokalari berriak, atxikiz halere zenbait "zahar" hala nola gure Bixente. Berria - Kultura

Israelgo Armadak erretiratze plana nola gauzatu **entseatzeko** kokagune moduko bat eraiki du base militar batean. Berria - Mundua

3 (adizlagunekin)

Sutsuki **entseatu**, baina ezin hura zentimetro bakar bat ere higiarazi. Xabier Montoia

Emeki-emeki **entseatzen** nintzen ene bi auzoen manta mutur bat ene gana tiratzera. Marzel Etxehandi

Gizakiaren Historia mendez mende horretaz egina iduri baitu, eta horren kontra nekez, zein nekez **entseatzen** ari den bakearen argi ttipi flakoa. Michel Oronoz

4 (era burutua izenondo gisa)

Gizon langilea eta **entseatua** izan da bere denboran. Herria

Hoinbeste oinazeren gatik dira, beharbada, bizirik gelditzen direnak hain **entseatuak** eta dinamikoak. Piarres Aintziart

Partida pollit hau ere ereman haatik bi anaiek, alta hain **entseatuak** eta bipilak diren BACeko bi pilotari haueri. Herria

• **5** du *ad* entsaiatu.

Hain gutxi prestatu eta **entseatu** izana. Hasier Etxeberria

Hori dela eta, «egunean sei orduz **entseatzea** nekagarria izan arren» oso esperientzia ona dela dio. Berria - Kultura

Desfileak bost ordu inguru iraungo ditu orotara: musika brasildarrari jarraiki datoz karroza batzuetako kideak eta ballet pausoak **entseatu** dituzte beste batzuek. Harkaitz Cano

-Zer ari haiz orain, ezpata dantza **entseatzen**? Harkaitz Cano

Bizpahiru egun partiturak irakurtzeko, eta hiruzpalau **entseatzeko**. Berria - Kultura

Jendeari arretarik jarri gabe, esaldiren bat ezpainetan zuela, drama txiki baten antzezpena **entseatzen** ari den aktore baten moduan. Anton Garikano

Aldez aurretik **entseatutako** atzapar-mugimenduak atzenekoz berretsi guran, klikada batzuen simulakroa egin zuen argazkirik egin barik. Josu Landa

Asteazkenero **entseatzen** dute neguan eta udaberrian biran ateratzen dira EEBB guztian zehar. Harkaitz Cano

Taldeak kontraerasoa eta areara egindako erdiraketak **entseatu** zituen. Berria - Kirola

Arratsalde batean, Iruainera joan eta laugarren edo bosgarren egunean, ari nintzen Espainiako himnoa **entseatzen** sukaldean eta garrasika hasi zitzaidan: "Musika hori etxe honetan ez!". Bernardo Atxaga

Oholtzako argi bakanak piztu eta, hainbat alditan **entseatu** bezala, baxu kolpeak markatzen hasi zen Mikel. Unai Iturriaga

Bazter ezkutu honetara etortzen da akordeoiarekin **entseatzera**. Bernardo Atxaga

Organoxka single baten melodia xumeaz musika-kaxa batetik ateratzen den dantzariarena egiten du pailazoak: geldiro-geldiro destolesten da, nagiak kenduz bezala, kartoizko kaxatik kanporatu eta ballet postura bat **entseatu** ondoren, gelditasun berdinarekin atzera tolestu eta melodia bukatzerako kaxara bere burua bilduz. Harkaitz Cano

Ederto **entseatutako** emakume gogorraren jarrera erakusten zuen. Sonia Gonzalez

Aipatutako bi aurrelariek gol bana egin zuten; ederrak biak, entrenamenduetan aspertu arte **entseatzen** diren horietakoak. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldiz entseatu (3); **bat entseatu** (3); **beti entseatzen** (3); **egitera entseatu** (6); **egitera entseatzen** (3); **entseatu behar** (4); **entseatu da** (6); **entseatu dira** (10); **entseatu naiz** (5); **entseatu nintzen** (4); **entseatu ondoren** (4); **entseatu zen** (13); **entseatu ziren** (4); **entseatzeak balio** (3); **entseatzeko eta** (3); **entseatzen ari** (7); **entseatzen ari den** (3); **entseatzen aritu** (3); **entseatzen da** (5); **entseatzen dira** (10); **entseatzen gara** (7); **entseatzen hasi** (3); **entseatzen zara** (3); **entseatzen zen** (4); **entseatzen ziren**

(3); **entseatzen zuen** (3); **ere entseatu** (3); **eta entseatu** (3); **eta entseatzen** (3)

---

entsegatu ik **entseatu**.

---

entsegu *(ETCn **11.001** agerraldi; cf **entsaio** ETCn **198** agerraldi)* **1** *iz* entsaioa.

Entsegu pare baten ondoren, prestatu dugu Alex, Bruce eta hiruok emanaldia. Harkaitz Cano

Elizako koruaren **entseguetan** egokitzen ziren biak, eta bazuten konfiantzarik. Bernardo Atxaga

Pirandelloren *Paperen jokoa* antzezlana jokatzeko **entseguetan** ustez parte hartu behar dutenak. Josu Zabaleta

Entseguak zituelako astelehenetan, astearteetan, asteazkenetan. Unai Elorriaga

Esperientziak argi erakusten baitzuen, **entseguetan** ondo bazebiltzan ere, jendaurrera azaltzean izuak harrapatuko zituela; eta akabo mojen estimua! Josu Zabaleta

Biharamunean iragarki baterako **entseguak** egin behar nituen, goi traizioagatik kargu hartu zioten emakume antzezle baten ordez. Joxan Elosegi

Arte ta **Entsegu** erakundeetan klasatua da sala. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaur, **entsegu** orokorra, urteko kontzerturako txartelen banaketa. Monika Etxebarria

Kalamua terapia jakin batzuetan erabil daitekeela baieztatzen duen **entsegu** klinikorik ba al dago? Berria - Harian

Lehen "Mururoa"-n hasi **entsegu** atomikoen jarraikitzeko omen, denen ixilean. Herria

AEBak Alaskan egiten ari ziren **entsegu** nuklearren kontrako batzorde bakezale batek sortu zuen. Berria - Gaiak

Ipar Korea ez dagoela batere geldirik bere nuklear **entsegu** eta ametsetan, froga eta froga ainitz ateratzen da egundainokotik aspaldiskoan. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Entsegu laborategi batean lan egiten du eta harremanetan ibiltzen da herrialdeko eraikuntza enpresa gehienekin. Aingeru Epaltza

«Rolls-Roycek sei hilabeteko aldea ateratzen dio besteari, eta horregatik erabiliko da hegazkinaren lehen **entsegu** hegaldietan eta lehen entregatzeetan», esan du ITPk. Berria - Harian

Emanaldietarako txaketak eta gorbatak lehen egunean bezain txukun jarraitzen zuten bere **entsegu** gelan. Bernardo Atxaga

Atxuriko tren geltokiaren ondoan den etxe multzo baten pean zeukaten **entsegu** lokala. Unai Iturriaga

Ikuskizuna zuzentzen zuen eta **entsegu**-moduko bat egiten zuen Fernandorekin hasi aurretik, lehenbizi egidazu hau, eta gero beste hau, prest?, klaketa, Fernando Billi ipurditik ematen, lehen hartualdia, argia, kamera, aurrera! Karlos Zabala

Orain arte, kontratu mugagabe bat izenpetu eta, lehen hiru hilabeteak ziren **entsegu** hilabeteak. Berria - Harian

Ez bada mugatua ere, lehen bi urteak **entsegu** urteak dira. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bost axola zitzaizkigun guri gerrako lubakietako nekaldi eta arriskuak, sinetsita baikeunden gerra-**entsegu** bat baino ez ginela antzezten ari, aktore-mozorroan. Mirentxu Larrañaga

5 (errugbian)

Hiru **entsegu**, lau gaztigu-ostiko eta punpa-laster bat, hala nola jokatu den uhain beltza. Herria

Hola bururatu da Parisen jokatu den partida: hiru **entsegu**, haietarik biga emendatuak eta bi gaztigu-ostiko. Herria

Lau **entsegu**, denak emendatuak eta bost gaztigu-ostiko, hiru **entsegu** emendatuen kontra. Herria

Parisko jokolariak Akitaniatik jinak gehienak: gustatu zitzaidan partida eta Hiri nagusiko gazteek zuten irabazi, Artestar mele erdilaria pasatu baitzen azken mementoan bi aurrelarien artean **entsegua** landatuz marra xuriaren gibelean. Piarres Aintziart

Partidaren azken minutuetan, kontra eraso batean azken energiaz baliatuz, **entsegua** markatu genuen! Ramuntxo Etxeberri

Entsegu-marra iragana zuen, aski zuen lurrera joaitea **entseguaren** markatzeko eta lurreratu gabe eskapatu zaio baloia. Herria

Aguileran bi **entsegu** egin zizkiguten zangoz ongi jokatuta. Berria - Kirola

6 *iz* saioa.

2600 kilometrotan zehar alemanek ez harrapatzeko bazen bertze jostetarik, ordea Paueko sarjentuak hirugarren **entseguan** baizik ez zuen erdietsi zinez ihes egitea eta Frantziako gune askera heltzea. Eneko Bidegain

Jaikitzeko zenbait **entseguren** buruan xutitzen naiz, edana banintz bezala. Marzel Etxehandi

Ala aitorensemek, ala apezek, bai eta apezpikuek berek **entsegu** frango baderabilate herriko hizkuntza zahar ederra xutik atxiki beharrez. Xipri Arbelbide

Idaztea munduaren ulertzeko **entsegu** bat da. Ana Urkiza

-Zer nahi gerta ere, **entsegu** bat eginen dut. Elena Touyarou

Sistematikatik aldentzeko eta **entseguen**, saialdien, hutsegiteen eta berriz hastearen desordena "bizia" eguneratzeko. Xabier Arregi

Kalamua terapia jakin batzuetan erabil daitekeela baieztatzen duen **entsegu** klinikorik ba al dago? Berria - Harian

Irakaskuntzako hizkuntza erregistroari gertuenetik segitzen dion nomenklatura politikoak ere egin ohi du **entsegu** politik tartean-tartean. Iñigo Aranbarri

Ipar Korea ez dagoela batere geldirik bere nuklear **entsegu** eta ametsetan, froga eta froga ainitz ateratzen da egundainokotik aspaldiskoan. Herria

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atentatu **entsegu** horren kondenu uharra segidan abiatu da. Herria

Hiltzaileak izaten dira, hamaika ihes-**entsegu** egindakoak. Xabier Montoia

Goizez, ariketa fisiko azkarrak eginarazten dizkizue, edota ibilaldi luzeak; tiro **entseguak**, arratsaldez. Xabier Montoia

8 saiakera.

Zer eskatzen diozu testu bati, poema bati, **entsegu** bati? Ana Urkiza

Premia daukat, orain, **entsegua** irakurtzen hasteko. Ana Urkiza

Entsegu eder baterako gaia litzateke sorgin kontu hori. Patziku Perurena

Egunean hiruzpalau ordu ematen omen zituen haren idazlanak aztertzen eta interneten aurkitutako hari buruzko aipamen eta **entseguak** pilaturik omen zituen etxean. Joxean Agirre

---

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atentatu entsegu (10); **azken entsegu** (4); **baionaren entsegu** (4); **bakoitzak entsegu** (4); **bederatzi entsegu** (4); **beste hiru entsegu** (4); **bi entsegu** (105); **bi entsegu egin** (42); **bi entsegu eginda** (5); **bi entsegu markatu** (5); **bi entsegu transformaketa** (8); **bi urteak entsegu** (4); **bost entsegu** (35); **bost entsegu egin** (12); **bost entsegu eginda** (11); **bost entsegu transformaketa** (5); **dourthek entsegu** (11); **dourthek entsegu transformaketa** (11)

entsegu aukera (5); **entsegu bakarra** (10); **entsegu bana** (11); **entsegu bana egin** (9); **entsegu bat** (111); **entsegu bat egin** (16); **entsegu bat eta** (10); **entsegu baten** (5); **entsegu batzu** (5); **entsegu eder** (4); **entsegu egin** (169); **entsegu egin ditu** (11); **entsegu egin dituzte** (5); **entsegu egin dizkiote** (6); **entsegu egin zituen** (33); **entsegu egin zituztelako** (4); **entsegu egin zituzten** (58); **entsegu egin zizkion** (16); **entsegu egin zizkioten** (5); **entsegu eginda** (52); **entsegu egiteko** (7); **entsegu emendatu** (10); **entsegu emendatu bat** (8); **entsegu erabakigarria** (9); **entsegu erabakigarria egin** (4); **entsegu eta** (10); **entsegu garaia** (4); **entsegu gisa** (7); **entsegu hori** (5); **entsegu lerroan** (5); **entsegu lerroraino** (5); **entsegu lerroraino heldu** (5); **entsegu lerrotik** (41); **entsegu lerrotik bost** (7); **entsegu lerrotik metro** (5); **entsegu lokalean** (8); **entsegu markatu** (11); **entsegu markatu dituzte** (7); **entsegu markatuz** (9); **entsegu transformaketa** (86); **entsegu transformaketa bat** (11); **entsegu transformaketa eta** (13); **entsegu transformaketa gauzatu** (27); **entsegu transformaketa yachvilik** (5); **entsegu urteak** (4)

eta bi entsegu (8); **eta entsegu** (44); **eta entsegu bat** (5); **eta entsegu lerrotik** (5); **eta lau entsegu** (6); **hiru entsegu** (67); **hiru entsegu egin** (26); **hiru entsegu eginda** (8); **lau entsegu** (55); **lau entsegu egin** (23); **lau entsegu eginda** (8); **lehen entsegu** (10); **lehen entsegu bat** (4); **miarritzeren entsegu** (10); **miarritzeren entsegu lerrotik** (8);

miarriztarren entsegu (4); **ostiko eta entsegu** (4); **sei entsegu** (32); **sei entsegu egin** (13); **sei entsegu eginda** (5); **urteak entsegu** (4); **urteak entsegu urteak** (4); **yachvilik entsegu** (18); **yachvilik entsegu transformaketa** (18); **zazpi entsegu** (28); **zazpi entsegu egin** (6); **zazpi entsegu eginda** (5); **zuen entsegu** (6); **zuten entsegu** (4)

azken entsegua (11); **azken entsegua egin** (4); **bidabek entsegua** (4); **bigarren entsegua** (11); **bobok entsegua** (6); **brusquek entsegua** (5); **egin zuen entsegua** (6); **entsegua da** (4); **entsegua egin** (57); **entsegua egin zuen** (22); **entsegua egin zuten** (9); **entsegua egiteko** (27); **entsegua egiteko aukera** (5); **entsegua egiten** (5); **entsegua eta** (5); **entsegua hagapean** (8); **entsegua izan** (4); **entseguak egin** (7); **entseguak egiteko** (12); **entseguak egiten** (7); **entseguak eta** (5); **entsegurik egin** (11); **eta entseguak** (14); **eta entseguak egiteko** (4); **ez piossekek entsegua** (4); **gobeletek entsegua** (4); **hirugarren entsegua** (9); **laugarren entsegua** (7); **laugarren entsegua egin** (4); **lehen entsegua** (36); **lehen entsegua egin** (8); **nuñ partidako lehen entsegua** (8); **piossekek entsegua** (5); **taldearen hirugarren entsegua** (4); **yachvilik entsegua** (4); **zigor entsegua** (8); **zuen entsegua** (10); **zuen lehen entsegua** (4); **zuten entsegua** (4), bi entseguak (6)

---

entsegugile *iz* errugbian entseguak egiten dituena.

Vunibaka (2),Thorn, Mauger, eta Carter izan ziren **entsegugileak**. Berria - Kirola

Gaitanek eta Marluk 4 entsegu: Miarritzeko bi jokalariak dira **entsegugileen** sailkapenean lehen postuan, Janinekin (Bourgoin) ados eginda. Berria - Kirola

Nicolas Brusque jarri da **entsegugileen** zerrendan lehen postuan, Simpson-Danielekin (Gloucester, Ing.) berdinduta, 6na entsegurekin. Berria - Kirola

Top 16ko **entsegugileei** dagokienez, Miarritzeko lau jokalari dira onenen artean, eta tantogileen artean, Yacvili da laugarren. Berria - Kirola

Bidabe eta Bobo dira taldeko **entsegugilerik** onenak (6 entsegu). Berria - Kirola

---

entseguka *adlag* entseguak eginez.

Hor ere Palestinaren libratzeko frente popularra, bake epe batzuetan abiatu nahi lukeena jadanik, **entseguka** bezala. Herria

---

entsegutxo *iz adkor* entsegua.

Eta azpil-nahaspilak ere berpizteko asmotan gaudek, eta berandu baino lehen ekin beharko zioagu **entsegutxoren** bati. Joan Mari Irigoien

---

entseiatu, entseia, entseiatzen *(ETCn **187** agerraldi; cf **entsaiatu** ETCn **188** agerraldi)* **1** da *ad* saiatu. ik **entseatu; entsaiatu**.

Iruñea berriz eskuratzera **entseiatzen** dira, baina debaldetan. Michel Oronoz

Aitamei eta niri begiratuz, Colette **entseiatu** zen amaren kalmatzera. Daniel Landart

Arestiko hausnarketetara itzultzera **entseiatu** nintzen, hots, bezperaz geroztik garunetan trabatua neukan galdera zitalera. Aingeru Epaltza

Bazkaltzen jarraitzera **entseiatu** zen; ezin ordea. Jon Muñoz

Ez nuen gehiagorik behar, pentsa dezakezunez, haren gelan sartzera **entseiatzeko**. Jon Muñoz

Sarri **entseiatu** izan naiz, atzodanik, ohorez zuri ihardestera, indarrik ordea ezin kausiturik. Jon Muñoz

Hutsune horien betetzerat **entseiatu** naiz, hitzez eta behakoz. Joan Mari Irigoien

Orduan bai, nola neuretzat gorde nahi bainuen neure tristuraren kausa, haren ezkutatzerat **entseiatu** nintzen. Joan Mari Irigoien

Ohikoan nabari ere ez nezakeen jeloskeria sentimendua nigan iratzar arazten **entseiatzen** zela iritzi nion. Itxaro Borda

Ahal bezenbat **entseiatzen** naiz atxikitzen nere heina. Herria

Ez nuke erran behar ordea, *ut supra* egiten **entseiatu** naizen deskriptzio poetikoen ondotik, orain, datu prosaiko batera lerrarazi nauela errealitateak. Piarres Aintziart

Oraingo honekin bion artean zubi bat edo, izan litekeena, **entseiatu** nahi nuke, Miranderi sarrera orokor gisa. Joxe Azurmendi

Denetan trebatzen da **entseiatzen** dena. Herria

2 entsaiatu.

Goizero, soro-lanera baino lehen, hantxe arituak ziren noski gaur antzeztu beharreko dantzaldia **entseiatzen**. Joxe Austin Arrieta

Ondo **entseiatutako** ikuskizuna eskaintzen ari balira bezala, Sofia, Vanessa eta Susana batera dantza eginez, biluziz joan ziren. Jon Arretxe

Bihar goizean goiz altxatu beharra daukat eta egun osoa **entseiatzen** eman. Deitu hamabietan antzokira. Lopez de Arana

Luzaz **entseiaturiko** elegia panpoxa. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

entseia hadi (3); **entseia zaitez** (4); **entseiatu beharra** (4); **entseiatu beharra nuela** (3); **entseiatu gabe** (3); **entseiatu nahi** (3); **entseiatu naiz** (3); **entseiatu nintzen** (11); **entseiatu zen** (10); **entseiatuko naiz** (5); **entseiatzen naiz** (4); **entseiatzen nintzen** (5); **entseiatzen zen** (5); **eta entseiatu** (12); **eta entseiatu zen** (3); **eta entseiatzen** (5); **permatu eta entseiatu** (7); **permatzen eta entseiatzen** (3)

---

entseina *iz* ikur edo inskripzio bat daukan panela.

Vivere socialiter et collegialiter et moraliter et scholariter dio Sorbonako **entseinak**. Aingeru Epaltza

Aski goiz ikusi nuen "Crematorium" **entseina**. Daniel Landart

Otsabideko liburutegi bakarra zeukan apezetxea huts, nesken eta mutikoen eskolak biak hertsiak, **entseinak** herdoiltzen zihoakien lau ostatuak. Itxaro Borda

So bakarraz kliska eta kliska ari ziren neonezko Asiako denda zein ostatu **entseinak**. Itxaro Borda

---

entseiu **1** *iz* entsegua, saioa. ik **entsegu**.

Huts egin bainuen neure lehen **entseiuan**. Joan Mari Irigoien

Bizitza osoan iguriki zezakeen, baina alferrik, zeren eta frai Antonioren eta Catalinaren **entseiu** eta ahalegin guztiek ez baitzuten fruiturik eman. Joan Mari Irigoien

Irakurriak baitzituen Montaigneren **Entseiuak** eta itsasoaz mintzo ziren bertze liburu batzuk ere. Joan Mari Irigoien

Hamaika **entseiu** eginak dira bakealdietan momentu hau prestatzen. Pedro Alberdi

Entseiu horren ondoren, ez baitzen bidenabar eginiko ahalegin bat baizik izan, jarri nion neure gutunari estalki bat. Jon Muñoz

2 entsaioa.

Pelikula italiar bat zen, txuri-beltzekoa, eta orkestra baten **entseiu** bat zen haren gai nagusia. Iban Zaldua

Ordutako saioak etxean partitura berriak ikasten, eta gero taldeko **entseiuak**, jole guztien jardunak emari bakarrean urtzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Entseiua dut. Lopez de Arana

Operako **entseiu** gelara eraman ninduen hurrena, bera nire begietara are desiragarriago egiten zuen ausarkeria ezusteko batez. Harkaitz Cano

Hamahiru edo hamalau urte izango nituen, eta inpresionatuta nengoen gure kantu **entseiura** iritsi berria zen albistearekin: baserri bateko nagusiak erabaki latz hura hartu omen zuen arratsalde hartan. Bernardo Atxaga

3 (errugbian) ik **entsegu 5**.

Luzaz bi taldeak 6 puntutan egonik, horra non partida bururatu baino bost minutu lehenago Panpi Ganderatz hegaletako hiru laurdenak **entseiu** bat markatzen duen! Daniel Landart

Haga-marrari hain hurbil izanik, zinez pena nuen **entseiua** ez markaturik! Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
entseiu eta (4); **montaigneren entseiuak** (3)

---

entseiulari *iz* saiakeragilea.

Handi George Sylvester Viereck (1884-1962), nobelagile, **entseiulari** eta argitaratzailea. Xabier Olarra

Oliver Goldsmith poeta, **entseiulari** eta antzerkigileak idatzia. Xabier Olarra

---

entselada ik **entsalada**.

---

enturtu ik **endurtu**.

---

entusiasmatu, entusiasma, entusiasmatzen **1** da/du *ad* entusiasmoa sentitu.

Baina, aspaldi hartan ez bezala, ez nintzen asaldatu... **entusiasmatu** ere ez, egia esan, nekatuta bainengoen, nekatuta batez ere. Joan Mari Irigoien

Espainolak zergatik ez diren ideia liberalengatik gehiago **entusiasmatzen**. Joxe Azurmendi

Zeren zinez baitzegoen ama liluraturik aita jesuitaren hitzekin eta haren presentziarekin; eta **entusiasmaturik** zegoen, gainerat, uste zuelako ezen bi gertaki haiek [...] ez zirela kointzidentzia huts, baina Jainkoaren probidentziaren aieru eta seinale. Joan Mari Irigoien

Nola pentsatzen zuen, bada, Giordano Brunok? -galdetu nizun, **entusiasmaturik**, su berri batek harturik sentitzen nintzela, zeren zuk zenekiena jakin nahi bainuen nik ere. Joan Mari Irigoien

• **2** du *ad* entusiasmoa sentiarazi.

Gizadi osoarentzako legegintza bakar berdinaren ideiak, edo hizkuntza zientifiko unibertsal bakarrarenak munduan, araudi unibertsal bakarrarenak literatura guztientzat poesian zein prosan, etab., espiritu beti itxi-itxi uniformistak, beharbada gutxiago **entusiasmatuko** gaitu. Joxe Azurmendi

---

entusiasmo **1** *iz* gogo beroa, suhartasuna, karra.

Entusiasmoa ez duk, ez, inteligenteen jarrera. Jokin Muñoz

Hooliganen **entusiasmoa** kutsakorra suertatzen zen orain. Bernardo Atxaga

Komunikatu nahi duenak, obsesioa edo **entusiasmoa** behar du, grina edo poz bat. Berria - Kultura

Arnegatu eta neokonbertsoen **entusiasmoa**. Jokin Muñoz

Rimbaudi buruz hitz egiterakoan erakutsi zidan **entusiasmoa**, berriz, ez daukat imajinatu beharrik: presente dut ahotsaren tonua, presente baita gauaren epela ere, eta zer gehiago behar dut eszena guztia berritzeko? Anjel Lertxundi

Bada jende mota bat, espiritu mota bat nahiago baduzu, **entusiasmoak** unatu edo gaina hartzen diena. Koldo Izagirre

Pasioz eta **entusiasmoz** egindako lana da Gartziarena, eta kutsatu egiten dio egileak grina hori irakurleari. Berria - Kultura

Nik esan egiten nion burura etorritako guztia, nerabezaroan ohikoa den muturreraino eramandako **entusiasmoaz** batzuetan, ezjakinen erabateko gaitzespenaz bestetzuetan. Berria - Harian

Etxera iritsi nintzenetik, gogogabe bezala aritu zitzaidan Sara eta, hitz haiek zuzendu zizkidanean ere, batere **entusiasmorik** gabe ziharduen, soraio eta sorgor. Joan Mari Irigoien

Ez zuela zerikusirik izan saltzaileak erakutsi zuen jarrera berrian, zeinaren arabera **entusiasmoz** aldeztu baitzuen bezeroaren eskaera ezohikoa. Jon Alonso

Migel Indurainek, ziur asko bere abokatuek idatzitako gutun txepel bat irakurri zuen, erosi beharrekoen zerrenda irakurtzen den **entusiasmo** ber-beraz. Joxerra Garzia

· Eta ibili bazebilen haizea, baina **entusiasmorik** gabe. Unai Elorriaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Julio Aracilek **entusiasmo** handia zuen Casaresengana, bere mailako kide duintzat zeukan. Josu Zabaleta

Oso modu prekarioan ematen genituen klaseak orduan, baina **entusiasmo** handiz. Ana Urkiza

-Kaixo, Demba -agurtu zuen Hübelek, **entusiasmo** handirik gabe-. Anton Garikano

Luisito pozarren joan ohi zen anaiaren gelara, katuen maniobrak ikusten aritzen zen, harriduraz begiratzen zion burezurrari; sekulako **entusiasmoa** sortzen zion denak. Josu Zabaleta

Ataka horretan nengoen, gutxieneko **entusiasmoa** inon ere aurkitu ezinean, baina lana inola ere utzi nahi ez, argazkia aldizkarian ikusi nuenean. Alberto Barandiaren

3 (hitz elkartuetan)

Idazleari ezin zaio **entusiasmo** falta barkatu. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
entusiasmorik gabe (3)

---

entusiasta *izond* estusiasmoa duena edo adierazten duena.

Nobelako kapitulu batean, behiala iraultzaile **entusiastak** izandako eta haize berriekin Pragako Udaberrian demokraziara "konbertituriko" komunista txekiarren kontua aipatzen da. Joxe Azurmendi

Askoz erosoago ibiliko hintzateke-eta, adibidez, *Ikasle Abertzaleak*eko ikasle **entusiasta** euskaltzale koadrilla horrekin. Jokin Muñoz

---

entxufatu, entxufa, entxufatzen **1** du *ad* entxufearen bidez konektatu.

Pentsa, gure gurasoen legean, irratia **entxufatuz** pizten zen eta saioa amaitzeaz batera, entxufea atera eta kitto! Pello Zabala

Aparatua, bezperako bera, **entxufatu**, eta bazebilen. Joxe Austin Arrieta

Ordenagailua **entxufatu** eta mahai gainean zabaldu zuen. Unai Elorriaga

Orduan niregana etorri eta proiektorea **entxufatu** zuen. Fernando Rey

Nori okurritzen zaio lanparak **entxufatu** gabe uztea! Patxi Zubizarreta

Horregatik itsasten dizkiete kolore askotako sentsoreak gorputz osoan, makinetara **entxufaturik**. Alberto Barandiaren

2 gomendio baten bidez lortu.

Badakit jendeak esango duela ni **entxufatuta** sartu naizela, ni baino maila handiagoko jendea kanpoan gelditu da, baina erabakia enpresarena izan da». Berria - Kirola

---

entxufe *iz* argindar sarera tresna elektriko bat konektatzeko gailua, bi osagai dituena; bi osagai horietako bakoitza.

Basamortuan ez argindarrik, ez telefonorik, ez **entxuferik**. Joxe Austin Arrieta

Etxean guardasol bat desagertzen zela, nire erru egiten zuten denek; **entxufe** bat kiskaltzen zela, ni nintzen hobendun. Pako Aristi

Ez dakit beste ezer egiten, inutil bat naiz, ez dakit **entxufe** bat aldatzen ere! Berria - Kultura

Zuzendaria dirudien emakumea azaltzen da agertokira urrats lasterrez, eta haren atzetik larru beltzez jantzitako gizon gazte bat, hormako **entxufean** lardaska hasten dena. Oskar Arana

Kartzela zaharra zen, eta isolamenduko ziegak kalabozoen antzekoak ziren; 40 watteko bonbilla kanpotik isiotu eta itzaltzen zuten, **entxufe** eta gisakorik ez zegoen. Jokin Urain

Gelako bertze muturrera garraiatu behar izan nuen trasteria guztia, ez baitzen **entxuferik** bazter horretan. Aingeru Epaltza

Gero, sarrailak, eskuko lanpararen **entxufea**, tiraderetako zirrikituak, iturriko tutua itsutu genituen bikeaz. Anjel Lertxundi

Zorua garbitzeko makinaren **entxufea** ez dela atera behar kabletik tira eginez. Josu Zabaleta

Pentsa, gure gurasoen legean, irratia entxufatuz pizten zen eta saioa amaitzeaz batera, **entxufea** atera eta kitto! Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
entxufe bat (3)

---

entxupinatu, entxupina, entxupinatzen da/du *ad* **

Zortzi hilabete egin nituen **entxupinaturik**, erreserban. Lander Garro

Bakarrik sentitu naiz **entxupinaturik** egon naizen bitartean. Eider Rodriguez

---

entzefaliko *izond* entzefaloarena.

Atomoen artean, Hidrogenoak du masarik txikiena; ez da, ordea, dauzkagun politikoen masa **entzefalikoa** baino txikiagoa. Anjel Lertxundi

---

entzefalitis *iz* entzefaloaren hantura.

Musikologoa zen, eta amnesia sakona zuen, lobulu tenporaleko **entzefalitis** batek eragina. Xabier Olarra

Gero **entzefalitis** batek "musikaren zentzua gordetzen duen zerebroaren puska jan egin zion literalki". Pablo Sastre

Errusian hiru pertsona hil eta beste 50 inguru gaixotu dira **entzefalitisaz** kutsatuta. Berria - Gaiak

Nagusiengan ere gara daiteke autismoa, edo autismoaren antzeko sindromeak, halakorik oso sarri gertatzen ez bada ere; batez ere, **entzefalitis** forma batzuen ondoren. Xabier Olarra

Letargia **entzefalitisa** izeneko gaitza 1917an agertu zen lehen aldiz, eta 1928an desagertu. Berria - Gaiak

Gaur egun ez dago letargia **entzefalitisa** sendatuko duen tratamendurik. Berria - Gaiak

---

entzefalizazio *iz* burmuina garatzea.

Dirudienez, kanpoko munduaren gogo-irudikapena aberastuz joan da Homo sapiensera eraman duten **entzefalizazio**-urratsetan zehar. Juan Garzia

---

entzefalo *iz* ornodunen nerbio sistemaren gune nagusia, burezurreko nerbio organoek osatzen dutena.

Andresi desatsegin gertatzen zitzaion beste gauza bat izaten zen ikustea nola, disekzioak egin ondoren, sobratzen ziren zatiak gorriz pintatutako galdara batzuetan sartzen zituzten, nola ageri zen haien artean esku bat gibel baten gainean, edo **entzefalo** puska bat, edo begi opako, lauso bat birika-ehunen artean. Josu Zabaleta

---

entzefalograma *(ETCn **47** agerraldi)* *iz* elektroentzefalograma.

Luis Alberdi **entzefalograma** laua emango luketen horietakoa zen, argi eta garbi adierazteko. Unai Iturriaga

Camel bat iziotu eta, besterik gabe, **entzefalograma** laua mantentzen saiatu zen, denborari joaten uzten, hurrengo eguna zabaltzen ikustea baino desio ez duenaren gisan. Unai Iturriaga

Linealtasuna, **entzefalograma** emankor baina laua. Lourdes Oñederra

---

entzefalopatia *(orobat **enzefalopatia** g.er.)* *iz* entzefaloko eritasuna.

Paranoiatik monomaniaraino hel gaitezke, adimen-kozientetik ergeltasunaren lehen adigairaino, paralisi orokorretik **entzefalopatia** kronikoraino, izaeraren neurositik deliriorik gabeko zorotasuneraino. Xabier Arregi

Elikagai berriek oraingo gaixotasunen areagotzeaz gainera berririk ere ekarri eta jeneralizatuko dute, hala nola salmonelosia, listeria, behien **entzefalopatia** espongiformea [...], *Clostridium prefringes* bakterioak, *Staphylococcus aureus*ek, *Mykobacterium*ek eta bestek eragiten dituztenak. Edorta Agirre

Lehengo astean **entzefalopatia** espongiformea edo behi eroen gaitza atzeman zioten behi bati Bizkaiko etxalde batean. Berria - Euskal Herria

Entzefalopatia espongiformearen aurkako tratamenduak kontuan hartu ez izana leporatu diote AEB Ameriketako Estatu Batuetako zientzialariek Gobernuari. Berria - Gaiak

Entzefalopatia gaitza zuten hamabost ardi hil dituzte Bizkaian. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
behien entzefalopatia (9); **behien entzefalopatia espongiformea** (3); **behien entzefalopatia espongiformeak** (4); **entzefalopatia espongiformea** (9); **entzefalopatia espongiformea edo** (5); **entzefalopatia espongiformeak** (4); **entzefalopatia espongiformearen** (3)

---

entzerratu, entzerra, entzerratzen *(orobat **enzerratu** g.er.)* da *ad* itxi.

Nire gelan **entzerratu** nintzen. Iban Zaldua

Idazlea bazterrean behatzen dagoen ikusle diskretu bat da, ene ustez, eta zaindari bat, lehenengo faro zaintzaileen gisakoa, baina ez marfilezko dorrean **entzerratua** delako, itsasoan diren ontzi galduen berri eman dezakeelako baizik, eta baita heltzear diren ekaitzen berri. Ana Urkiza

Hor dira Kaspillako mendiak eta Gog eta Magogeko lurraldeetan **entzerratuak** diren Juduak. Aurelia Arkotxa

Munduko Bankuak bahituta daukala esaten du egileak, haientzat lan egitera behartu dutela, eta Mendi Harritsuetan duen egoitza ultrasekretu batean **entzerratuta** daukala, haientzat lan egin dezan. Iban Zaldua

Behin etxean biak **entzerraturik** egonez gero, beste zerbaiten hasiera izan zitekeela susmatzen bainuen, eta hori ez nuen nik inolaz ere nahi. Joxemari Iturralde

Ez dituela arratsaldeak liburuen aurrean pasatuko etxean **entzerraturik**. Iban Zaldua

Idazleen gauza da, denbora eta sarritan bizitza osoa letrak diren inurrien ilara amaigabeak antolatzen ematea, gela estuetan **entzerraturik**, egunak etxegun bihurtu eta etxegunak beharregun bihurtuta. Joseba Sarrionandia

---

entzerrona *iz adkor* itxialdia.

"Asanblada, **entzerrona**, manifa, sentada edo kazerolada horietako batean enteratuko zuan", pentsatu duk, "beti ikasleekin ibiltzen duk-eta, auskalo zein ipurdiren atzetik". Jokin Muñoz

---

entzierro **1** *iz adkor* itxialdia.

Errepublika hitza independentzia hitzarekin nahasten genuen eta akademia erranteak besterik ez genituen aintzat hartuko, bizi gineneko **entzierro** hartan Ikastetxeko bahituok debekatua eta baztertua miresten genuelako. Joseba Sarrionandia

2 zezenak eskortara eramatea.

Leioako gizon bat hil da Kantabrian, **entzierro** batean. Berria - Euskal Herria

29 urteko errenteriar bat zauritu du zezenak Valladoliden, **entzierro** batean. Berria - Euskal Herria

San Ferminetako **entzierroa** zirudien. Gotzon Garate

"Entzierro" delako zezen lasterraldiek betiko arrakasta ukan dute. Herria

Iruñeko bestetako **entzierro** batean larriki zauritua izan zen. Herria

Zu, Murua, **entzierroa** korritzera hamargarren urtez segidan doan australiarra zara. Andoni Egaña

Beraz, 'A San Fermin, pedimos por ser nuestro patron...' **entzierroetako** himnoa bere baitan kantatu zuen. Ramuntxo Etxeberri

Igandean maiatzaren 8an 10,30etan Meza nagusia, eguerditan **entzierroa** eta bazkaria. Herria

Iruñeko zezen- **entzierroen** zale amorratu aspaldikoak. Josetxo Azkona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **entzierro batean** (3); **entzierro ttiki** (3)

---

entziklika *iz* Aita Santuak apezpiku guztiei bidalitako eskutitza, dogma edo doktrinako puntu bati buruz diharduena.

Halaxe dio, besteak beste, Joan Paulo II. Aita Santuak *Centesimus annus* 1991. urteko **entziklikan** : [...]. Iñaki Heras

Entziklikak Eliza katolikoko buruzagiak fededunei igorritako gutunak izaten dira. Berria - Gaiak

Arimaz aritu da Eliza katolikoko buruzagia bere lehen **entziklikan**. Berria - Gaiak

Entziklikaren bigarren zatia karitateari eskaini dio Ratzingerrek. Berria - Gaiak

Kristautasunari, maiz, debeku eta arau hertsien bidez bizitzaren plazerrak «garraztea» leporatu izan ohi zaiola onartu du Ratzingerrek **entziklikan**. Berria - Gaiak

Uste da berak lagundu ziola Joan Paulo II.ari *Evangelium vitae* **entziklika** idazten. Berria - Harian

2 *hed*

1246an, Predikarien Ordenako Maisu jeneral Joan Teutonikoak **entziklika** bat bidali zien domingotarrei Anaia txikienganako onginahia eta onarpena aholkatuz. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ratzingerrek entziklikan** (3)

---

entziklopedia *(orobat **enziklopedia** g.er.)* **1** *iz* eskuarki alfabetoaren hurrenkeraz giza ezaguera guztien edo gai jakin bati dagozkionen berri ematen duen obra.

Halako batean, arrasto mordoa aurkitzen hasi zen Matias Tabucchi **entziklopedietan**, eta nahiko argi zeukan ordurako non zegoen bilatzen ari zena. Unai Elorriaga

Basileari buruzko erreportajeen gai-zerrenda osoa Lur **Entziklopediako** Ay-Byron tomotik hartua zuela konturatu nintzen. Anjel Lertxundi

Erleei buruzko liburu bat erosi behar zuela edo **entziklopediaren** batean bilatu beharko zuela *erle* sarrera edo *erlezain* sarrera. Unai Elorriaga

Erdi **entziklopedia** erdi hiztegi den liburua da. Askoren artean

Nork irudikatzen du hogeita hamar liburukiko eta milaka orrialdeko **entziklopedia** bat, esaterako, bolaluma baten muttur txikian sartua? Pello Salaburu

Entziklopediako beste letra batzuetan begiratu beharko zuen beharbada. Unai Elorriaga

Entziklopedia bat kontsultatzen saiatu naiz. Lopez de Arana

Entziklopediaren azken aleak kaleratzeko. Koro Navarro

Gisa horretan azaltzen dute hiztegiek, **entziklopediek** eta ikasliburuek. Berria - Euskal Herria

Pariseko argazkiak orrialde oso bat hartzen zuen **entziklopedia** hartan. Jokin Muñoz

Oso gaixo nengoen eta ez nintzen lanerako gauza; bezeroak galdu nituen, dena galdu nuen: inoren interesik pizten ez duten gauzaz betetako **entziklopedia** bat bezala gelditu nintzen. Iñaki Segurola

Entziklopedia baten pareko zen beisbol kontuan: den-dena zekien partiden, jokalarien, emaitzen eta estatistiken gainean. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez **entziklopedia** oso bat; hiztegi entziklopediko bat, liburu bakarrekoa. Unai Elorriaga

Liburuen apalen ondotik igarotzean, **Entziklopedia** Amerikarraren liburuki bat hartu eta beste besoaren azpian sartu zuen. Lopez de Arana

Sexologia eta Erotismoko **Entziklopedia** Ilustratuan agertzen denez, [...]. Luis Elberdin

Historiako lehen **entziklopedia** filosofikoa eta zientifikoa ismaeldarrek ondua da. Jon Muñoz

Gerra Zibilari buruz berriki argitaratu den **entziklopedia** irudidun batean ikusi dudala uste dut. Iban Zaldua

Urteetan Berlinen bizi izan zen filosofoa zen, eta hebrear **entziklopedia** bat argitaratzen zuen. Koro Navarro

Filosofiako **entziklopediarik** onena. Askoren artean

Kontsultarako **entziklopedia** digital garrantzitsuenetako bat da. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Hirugarren etxean **entziklopedia** -saltzailearen istorioa kontatu zioten berriro. Unai Elorriaga

Berak bazekien, ordea, normalean saltzen nituen **Entziklopedia** aleak bikoiztuta ere ez nuela Polloen panteoi bat erosterik izango. Ramon Saizarbitoria

4 irud/hed

Txapli **entziklopedia** bat zen batzuetan. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

buruzko entziklopedia (3); **da entziklopedia** (4); **edo entziklopedia** (4); **entziklopedia bat** (24); **entziklopedia bat zen** (3); **entziklopedia batean** (10); **entziklopedia baten** (4); **entziklopedia eta** (5); **entziklopedia guztietan** (3); **entziklopedia hori** (3); **entziklopedia saltzaileak** (13); **entziklopedia saltzailearen** (6); **entziklopedia zegoen** (3); **eta entziklopedia** (4); **eta entziklopediaren** (3); **eta tabucchi entziklopedia** (3); **hildakoen entziklopedia** (13); **italiarrak entziklopedia** (3); **italiarrak entziklopedietan** (3); **kisen hildakoen entziklopedia** (3); **munduko entziklopedia** (3); **tabucchi entziklopedia** (15); **tabucchi entziklopediaren** (3); **zen entziklopedia** (5); **ziola entziklopedia** (5); **zuen entziklopedia** (5)

---

entziklopediagile *iz* entziklopediak idazten dituen pertsona.

Bizirik dauden **entziklopediagile** guztiak *The Beatles* taldearen zaletu ezin diziplinatuagoak dira. Unai Elorriaga

John Lennonek berak ez luke ezer galduko, honezkero goitik behera desintegratuta egongo delako, baina **entziklopediagileek** asko galduko lukete. Unai Elorriaga

The Beatles taldea entzuteari utziko liokete **entziklopediagileek**, eta hondamendia izango litzateke hori **entziklopediagileen** bizitzetan, hondamendi pertsonala zein familiarra. Unai Elorriaga

---

entziklopediazale *izond/iz* entziklopedista.

Katalinak harreman onak izan zituen **entziklopediazale** frantziarrekin; ezaguna da Voltairekin izan zuen gutun-harremana. Juan Martin Elexpuru

---

entziklopediko *izond* entziklopediarena, entziklopediari dagokiona; ezaguera handia eta zabala adierazten duena.

Liburuaren lehenengo atala, atal **entziklopedikoa** da. Askoren artean

Ez entziklopedia oso bat; hiztegi **entziklopediko** bat, liburu bakarrekoa. Unai Elorriaga

Sukaldeko bakean geratzen nintzen Hiztegi **Entziklopedikoan** zegokidan sarrera ikasten. Ramon Saizarbitoria

Eskaileretan gora eta behera Hiztegi **Entziklopedikoak** saltzen. Ramon Saizarbitoria

Harritu egiten ninduen Hollywoodeko film zaharrei buruz zeukan jakintza **entziklopedikoarekin** eta pantailan lipar batez agertzen ziren aktore txiki eta ahaztu guztiak ezagutzeko zuen dohainarekin. Oskar Arana

Ez dut askojakin itxurarik egin nahi nire ezjakintasuna presakako irakurketa **entziklopedikoekin** estaliz. Xabier Mendiguren Elizegi

Datu bilketa astun eta **entziklopediko** horren artean, topaketa kuriosoak izaten ditu ESAren Mars Expressek. Berria - Gaiak

Hausnarketa teorikoei uko egin gabe, halako asmo **entziklopediko bat** darabil, orotariko bilketa bat eginez eta hizkuntza askotako adibideei iruzkina egiten. Iñaki Arranz

Jakin da, bestalde, ondo ezagutu zutenek adierazita, jakituria **entziklopedikoa** zuela, eta karisma ikaragarria. Unai Elorriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

entziklopediko bat (9); **harluxet hiztegi entziklopedikoa** (16); **hiztegi entziklopediko** (14); **hiztegi entziklopediko bat** (8); **hiztegi entziklopedikoa** (31); **hiztegi entziklopedikoak** (7); **hiztegi entziklopedikoan** (6), hiztegi entziklopedikoaren (13); **lur hiztegi entziklopedikoa** (3)

---

entziklopedista **1** *izond/iz* Diderot eta D'Alembert-en *Entziklopedia*-ko doktrinen zalea zena.

Horren kontra ziren altxatzen hasi Voltaire, Diderot, Rousseau eta **entziklopedistak**. Xipri Arbelbide

Ez gara konturatzen Ilustrazioaren garaian, **entziklopedisten** garaian, artean Inkisizioa zegoela, eta biraogilea torturatu eta hil egiten zutela. Berria - Mundua

Plinioren *Historia naturalis* eta Beauvais-en *Speculumetik* hasi, eta frantses **entziklopedisten**, *Britannica*ren, Pierre Larousse-ren, Brockhaus-en eta Montaner y Simón-en labirinto atseginetaraino. Juan Garzia

Halatan bakarrik gertatuko zen bere Peru Abarka misiolari **entziklopedistek** aldarrikatzen zuten *Basati Ona* izateko duin. Anjel Lertxundi

2 jakinduria entziklopedikoa duena.

Hona helduta, luza gaitezke eztabaida usteletan, kazetariak ez duela **entziklopedista** izan behar, ez duela zertan denetik jakin, kalte besterik ez diola egiten langileari sarri-sarri batetik bestera mugitzeak, ministroak bezala, kiroletatik nazioartera eta politikatik kulturara. Iñigo Aranbarri

---

entzima *(orobat **enzima** g.er. eta **enzyma** g.er.)* **1** *iz* erreakzio biokimikoak eragiten edo bizkortzen dituen proteina disolbagarria.

Entzima, funtsean, katalizatzaile bat da, hau da, erreakzio kimiko bat bizkortzen duen baina prozesuan aldaketarik izaten ez duen substantzia bat. Irene Aldasoro

Egitura-proteinak ziren gehienbat, hala nola giharrenak, edo **entzimak**, hala nola arnasketan funtzionatzen dutenak. Juan Garzia

Entzima batzuek glukosa bihurtzen dituzte azukreak eta almidoiak. Irene Aldasoro

Entzima horiek guztiz ere espezifikoak ziren: bakoitzak ADN sekuentzia labur jakin bat ezagutzen zuen. Juan Garzia

Entzimek ez dute gorputzean denbora luzean irauten; aitzitik, desegin eta berregin egiten dira etengabe, ehun biziaren beste osagaiak bezala. Irene Aldasoro

Kimikariek oraindik imitatu ezin dituzten emaitza horiek **entzimek** lortzen dituzte. Irene Aldasoro

Minbizia eragiten duten zelulak suntsitzen dituen **entzima** aurkitu dute. Berria - Gaiak

Beste hogei urte behar izan ziren ikusi arte **entzimak** erabiliz posible zela organismo baten ADN zatikiak moztu eta zati horiek beste zatiki batzuekin batzeko. Pello Salaburu

A20 **entzimak** hantura sortzen duten gaixotasunak geldiaraz ditzake. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gorputzeko zelula gehienek berrehun **entzima** desberdin dituzte gutxienez. Irene Aldasoro

Kasu guztietan, erreakzio-kate linealak ditugu, hots, sekuentzia batzuk, non urrats bakoitza **entzima** espezifiko batek katalizatzen baitu. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egun, 1.300 **entzima** mota baino gehiago ezagutzen dira. Irene Aldasoro

Horrenbestez, **entzima** -zorro bat da zelula. Juan Garzia

Bi ikerlan motak -lisogeniari buruzkoa, André Lwoff-en eskutik, eta **entzima** -biosintesi induzituari buruzkoa, Jacques Monod-en eskutik- ez zirela, izatez, fenomeno beraren bi aurpegi baino, mekanismo beraren bi adierazpen. Juan Garzia

Dado handi batzuekin jolastuz, handik pasatzen zen orori erakusten zizkion halako egituren bertuteak, aise oszila baitzezaketen bi egoeraren artean, bata **entzima** -jardueraduna eta bestea gabea. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gantza digeritzea nahiko zaila da, heste-**entzima** gehienak uretan baino ez baitira disolbatzen. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

entzima bat (3); **entzima horiek** (3)

---

entzimatiko *izond* entzimena, entzimei dagokiena.

Likido amniotikoaren eta bertan esekirik dauden zelula fetalen azterketa fisiko, kimiko, **entzimatiko**, zitologiako eta zitogenetikoa egiten da, umekiak arazoren bat duen ikusteko. Berria - Gaiak

---

entzuera *iz* entzutea.

Au **entzueran**, aldun batzuk alkarri keinuka zioten: nork nori joko ote dizkiogu bostak, geuk beroni ala beronek geuri? Anjel Lertxundi

Filologoa, alde batera, itsua da, zeren ez baitu mundua ikusten, ez du teologoek hain maite duten "mundu-ikuskera" delako horren arrastorik, ez mundu-ulertzerik, baina bai mundu-**entzuera** bat. Iñaki Segurola

---

entzuketa *(ETCn **1.049** agerraldi; orobat **entzunketa** ETCn **14** agerraldi)* **1** *iz* entzutea, entzuten egotea.

Aznarren agintaldian bitartekari lanak egin nituen telefono bidez, eta zerbitzu sekretuek nire telefonoan **entzuketak** egin zituzten. Berria - Harian

CNIren agiritik ondorioztatzen da Espainiako zerbitzu sekretuek Arnaldo Otegi, Juan Jose Ibarretxe, Josep-Lluis Carod Rovira eta Rafa Larreinaren arteko elkarrizketen **entzuketak** egin zituztela martxoaren 11n, Madrilgo atentatuen egunean. Berria - Euskal Herria

Entzuketa horiek egin izanak agerian uzten du Espainia ez dela «estatu demokratikoa». Berria - Euskal Herria

Telefono bidez egindako **entzuketekin** abiatu zen iskanbila, eta egunez egun argitaratzen dira auziko xehetasunak. Berria - Kirola

Al Kaedaren Espainiako ustezko taldeari 2001ean egindako **entzuketa** batean agertzen da Mahomed Chaouiren izena. Berria - Mundua

Baltasar Garzon epaileak abokatuen aurka abiatutako 222/04 sumarioa dute abiapuntu **entzuketek**. Berria - Harian

Orain testu horren oroitzapena ere erantsi behar zaiok piezaren **entzuketa** bakoitzari. Anjel Lertxundi

Estatuko fiskal nagusiak **entzuketen** aurkako neurririk hartu ez izana kritikatu zuen Larreinak. Berria - Euskal Herria

PPren manipulazio saioa alde batera utzita, **entzuketen** afera ere gogor kritikatu zuten alderdiek. Berria - Euskal Herria

Australiako zerbitzu sekretuengandik jakin zuen Butlerren segida hartu zuen Hans Blixen sakelako telefonoa ere **entzuketapean** ezarri zela. Berria - Mundua

1978. urtean indarrean jarritako legeak **entzuketak** debekatzen ditu epaile baten agindua izan ezean. Berria - Mundua

Entzuketen salaketa egiteko eskatu dio Legebiltzarrari. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zer ondoriozta daiteke halako **entzuketa** sistematikoetatik? Berria - Harian

Jakin badakigu 50etik gora **entzuketa** telefoniko daudela, eta bakarra eman digute, zatika eta gaztelaniara itzulita. Berria - Euskal Herria

Ikusi besterik ez dago une honetan **entzuketa** ilegalak lotsagabeki aldarrikatu egiten direla. Berria - Euskal Herria

Hasierako **entzuketa** informaziorik gabea datuz eta erreferentziez bete zitzaidaan. Anjel Lertxundi

Zigortutakoek jarritako helegitea aztertzean, gertaerak -legez kanpoko **entzuketak**- frogatutzat jo ditu Auzitegi Gorenak. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berdeei, Ezkerreko Alderdiari eta Liberalei ez zaie nahikoa iruditu BNDko bi agentek Bundestageko **entzuketa** talde baten aurrean herenegun eginiko ukazioa. Berria - Mundua

Auzitegiak dio ikerketak frogatu zuela inputatuek ez zutela lesiorik eragin, eta **entzuketa** frogarekin gertatutakoa aintzat hartzeko ere eskatzen du. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Akusatu askori egindako telefono **entzuketak** ez daudela sumarioan, eta egon egin beharko luketela. Berria - Harian

Elkarteak desegin eta telefono **entzuketak** baimendu. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko elkarrizketen entzuketak (4); **egindako entzuketak** (4); **egindako entzuketengatik** (3); **elkarrizketen entzuketak** (4); **elkarrizketen entzuketak egin** (4); **entzuketa horiek** (3); **entzuketak egin** (11); **entzuketak egiten** (6); **entzuketak egiten ari** (3); **entzuketak eta** (4); **entzuketen berri** (3); **kanpoko entzuketak** (7); **legez kanpoko entzuketak** (7); **telefono entzuketa** (5); **telefono entzuketak** (10)

---

entzula ik **entzule**.

---

entzule *(**1.361** agerraldi, **140** liburu eta **482** artikulutan; ETCn **12.579** agerraldi; orobat **entzula** g.er.)* **1** *iz* zerbait, eskuarki hitzaldi edo irratsaio bat, entzuten duena edo entzuten ari den pertsona.

Ez dago gertatutakoa islatuko duen ispilurik, haren lekuan leiho bat dago, eta bertatik irakurleak, **entzuleak** edo ikusleak gertatutakoa zuzenean ikus dezake, bertan balego bezala. Berria - Gaiak

Guk pertsonengan jarriko dugu arreta: mezuaren igorlea den idazle zein hizlariarengan, eta mezu horren hartzailea den irakurle zein **entzulearengan**. Iñaki Arranz

Kazetaritzan, aldiz, presenteago dago beti hartzailea, dela irakurle zein **entzule** edo ikus-entzulea. Joxerra Garzia

Pertsona gorrak eta **entzuleak** ia-ia parekoak dira han. Berria - Harian

Gramatikak hiztunaren ikuspuntua hartzen omen duelako **entzulearenaren** kaltean; hots, esaldiak ekoizteko prozesuari arreta jartzen diola, esaldien egitura berregiteko alderantzizko ekintzari ez bezala. Itziar Laka

Bertsogintzan ikusle eta **entzulearen** erreakzioak, begiak, txaloak, barreak, isiltasunak... sortzailearentzat lehentasunezko inputak dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Musikak ez du beti **entzulea** gozoki ferekatzen, kolpatu ere egiten du. Herria

Hartzailea, berriz, **entzule**, ikusle nahiz irakurlea, informazio-egarriz kanillako ura esku-ahurrean hartu eta edatera doana. Joxerra Garzia

Entzule izaiteak, berriz, belarriak zolitu zizkidan. Joan Mari Irigoien

Jaunak hitza eta espiritua eman zizkien, aldian aldiari zegokion eran, **entzule** askoren bihotzetan -gazteen bihotzetan zaharrenetan baino gehiago- barrenduko ziren hitz zorrotzak esateko. Askoren artean

"Behin batean" esan, eta **entzule** guztiak haren inguruan biltzen ziren. Bernardo Atxaga

Bai bertsolariak eta bai **entzuleak** berbalditzat hartzen du bertso bakoitza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Emakume hark hain sentimendu handiz irakurri zuen, non **entzule** guztiak liluratu baitzituen. Joan Mari Irigoien

Entzuleak alde egiten hasi ziren kontzertua aurrera zihoan ahala (kantu bakoitzean, hamarren bat lagun). Berria - Kultura

Epaiketa hartan **entzule** zeuden batzuek komentatu omen zioten K jaunari langile hura burutik eginda zegoela. Joxerra Garzia

Leireren ama isildu egin zen une batez, **entzule** zituenek jarraitzen ote zioten ziurtatzeko edo. Aitor Arana

Honezkero igarri zenion, **entzule**, nori ari natzaion agur egiten, ez baitzara batere inuxente. Joxerra Garzia

Aitorrek bere berbaldiari "hobetuko naiz baina orduan neu izan gabe ordea!" josten dionean, bertsolari **entzule** komunikazioak goia joko du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Berrogei segundotan nola lor daiteke **entzulearen** arreta erakartzea? J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bere jakitate haundia iturri pare gabetik hola ixuriko zuena, eskolan bezala eskolatik kanpo, **entzulearen** xoramendua eginez orozbat. Herria

Nor da hain auhen bortitzez kexu dena, bere tristura-pleinuz izar alderraiak konjuratu eta haiek geldiarazirik, **entzule** harridurak joen gisa? Juan Garzia

Xanpaina aspaldi zen nire burura igorik, eta uste dut haririk gabe aritu nintzela aldi batez, pitokeriak eta barregarri izan nahi zuten kontu zentzugabeak botaz, nire **entzule** marihuanaz erdi hordituek esaten ari nintzenari jarraitzeko ahalegina egiten zuten bitartean. Oskar Arana

Ikusmina handia zen, eta 50 milioitik gora **entzule** izan zituen eztabaidak telebistan. Berria - Mundua

Egon Irulegiko irratiaren **entzule**, jakinen duzue nun eta zer tenoretan ari diren gure puttikoak, ba Panpi Idiart eta Xabi Errekarte! Herria

Hazparneko kantaldian, 550 **entzule** gehienak gazte. Herria

Ikusle edo **entzule** pasibo gisara agertzen direnentzat musika deserosoa da. Berria - Kultura

Diska bikoitz hontan 17 kantu dauzkagu lehen zati batean, bigarrenean kantu horien musikak entzungai direlarik, **entzule** bakotxak kantatzeko gisan, diskarekin betan banatzen den liburuttoari esker. Herria

Harantzago, baso txiki eta soildu hartako beste urki batean, beleak zeuden, **entzuleak** irudi, beleak zeuden zuriz antzaldaturik haiek ere, usoak irudi. Felipe Juaristi

Uste dut denentzat, desafio eder bat izanen den, eta pentsu dut **entzuleak** plazer hartuko duela. Herria

Entzuleak badira, omen, frantses gobernuan, hala direla diotelarik aho beteka. Herria

Aktiboki parte hartu nahi duen **entzulearentzako** musika da. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Buru-argiak jakintza lortzen, **entzule** zuhurra bila saiatzen. Elizen arteko biblia

Entzule ona eta behatzaile fina zen eta da. Ana Urkiza

Entzule onak kontalari onak berak baino meritu gehiago dauzkala esaten ari zaigu Eladioren begirada. Pako Aristi

Koktel-jaialdietako efektua da hori, jendez betetako gelako berbaroaren erdian **entzule** saiatuari ahots bakar bat edo elkarrizketa bakar bat entzutea ahalbidetzen diona. Irene Aldasoro

Entzule diziplinatuek ulertu zuten musika arriskutsua izan zitekeela. Xabier Olarra

Horrekin guztiarekin **entzule** gazteen artean zaletasuna ere finkatu egin da, bertsolariek (batzuk eurak bezain gazteak) beren kezka eta gustuei erantzuten dietela ohartzen baitira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Mitinak entzutera doan jendea izan zuen hizpide eta lau **entzule** posible aipatu zituen: «bozkatuko duen alderdia entzutera doana; ziurrenik alderdi hori bozkatuko duen zalea; alderdi guztietako mitinak entzutera doana, ondoren txutxu-mutxuka ibiltzeko; eta infiltratua [...] demokrazia hasierako garaian ohikoa zena». Berria - Euskal Herria

Halakoetan ohi bezala, aretoa bete-bete dago; ez, gainera, **entzule** arrunt edo xumeez, oso jende ilustreez baizik. Karlos Linazasoro

Orkestrak entzutera gero eta jende gutxiago joaten da, **entzule** zaharrak erakartzen dituelako. Berria - Kultura

Kalean, harpalari bat ari zen, biribilean jarritako **entzule** bakan batzuentzat jotzen. Irene Aldasoro

Gizon santuen etsenpluek atsegin galkorren mespretxua sortzen dute **entzule** debotoen bihotzean eta betiko salbamenaren desira pizten. Askoren artean

Ez zuen inguruko ezer ikusten, ez bere nagusiak ez bere lagunak, ez eta dama dotoreak ez antzokiko **entzule** txoratuak ere. Xabier Olarra

Ez zen sekula Ebanjelioaren **entzule** gor izan, baizik eta entzundakoa bere oroimen harrigarriari gomendatuz, arreta osoz hitzez hitz betetzen ahalegintzen zen. Berria - Kultura

Izaki bizigabeak zerbitzari bihurtzen, basapiztiak mantsotzen eta adimengabeko izakiak **entzule** saiatu egiten. Askoren artean

Entzule agurgarri hori: [...]. Joxerra Garzia

Bertsolariarentzat ezinbestekoa da aurrez aurreko **entzulea**. Andoni Egaña

Zer kantatzen du bertsolariak gaurko **entzulearengana** nolabaiteko arrakastaz iristeko? J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Portugaleko Coimbra hiri ospetsuan, izigarriko **entzule** jakintsu eta bereziki argitu taldearen aitzinean. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren begietan, **entzule** multzo handia lagun bakar bat bezala zen, eta lagun bakarrari jendetza handiari adinako arduraz predikatzen zion. Askoren artean

Entzule eta irakurle multzo horrek eroso eta nekerik gabe jarraitu behar du hedabideen jarduna. Koldo Zuazo

Horra zergatik gure Artzapezpiku ospetsuak Erramu igandeko joan den egunean, **entzule** saldo handiaren aitzinean meza eman duen agerian. Piarres Xarriton

Joanden larunbatean, Josu Jon Imaz alderdi jeltzaleko buruzagia Donibane Lohizunen mintzatu da Euskal Herriaren geroaz eta ukan du **entzule** andana ederra. Herria

Entzule kopuruaren eta komunikazio mota honek berekin duen konplizitatearen ondorioz, bertsolaria nolabaiteko iritzi-erreferentzia bat dela esan daiteke euskal hiztunen komunitatean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Erdian mikrofono baten antzeko idazluma egonen da eta lerrodun hutsune bat edukiko du, **entzule** jendeak mezuak idatz ditzan hor. Iñaki Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pertsona da bertso-**entzuleari** mintzo zaiona, ez pertsonajea. Andoni Egaña

300 bat meza **entzule** ere baziren. Herria

Irrati **entzuleak**, berriz, 1,3 milioi baino gehiago dira. Berria - Euskal Herria

Dela musika berez maite nuelako, dela izan ez nuen maitasunaren ordekotzat hartzen nuelako, musika-**entzule** fin eta nekegabea bihurtu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

5 *ikus-entzule* *(orobat **ikusentzule** g.er.)*

Hilabete osoan 79 kontzertu eta ikuskizun bildu ditu Hamabostaldiak eta 53.000 **ikus-entzule** izan dira horietan. Berria - Kultura

Gogobeterik, **ikus-entzuleei** begiratu zien. Jon Muñoz

Ohi legez nazioa bikain zihoala oroitarazi zien **ikus-entzuleei**. Migel Angel Mintegi

Ikus-entzuleengana hurbildurik. Jon Muñoz

Ikus-entzuleen parte-hartzea bultzatzeko. Berria - Kultura

Ikus-entzuleen kopurua iazkoaren parekoa izan da. Berria - Kultura

Gehienak, ordea, telebista **ikus-entzuleak** dira: ia bi milioi lagun. Berria - Euskal Herria

Hartzailea **(ikus-entzulea** edo irakurlea) bere obra edo bere interpretazioa ulertzera, ederrestera eta oniriztera heltzen delako. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

Ongi ezagutuko zituen kikiltzeko moduko begirada haiek eta **entzunaldi** moztuak. Ian honetako abestiek ondo jasaten dituzte **entzunaldi** exigenteak, behera etorri gabe. Monika Etxebarria

2 (hitz elkartuetan)

Estreinako gau epeletariko batean, zale talde batek berekin joatera gonbidatu ninduen **entzunaldi**-osteratxoa egitera. Juan Garzia

Parkearen antolamendu plana aldatzeko «behar adina urrats» egin dituzte: Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurretiazko txostena eta interesatutako pertsonen **entzunaldi** urratsak; informazio publikoa; eta eragindako erakundeei eta giza interesei kontsulta. Berria - Euskal Herria

· Horregatik, musika **entzunaldi** bakoitza mirari bat zen belarrientzat garai hartan. Pako Aristi

---

entzunarazi, entzunaraz, entzunarazten **1** du *ad* entzutera behartu.

Inolaz ere entzun nahi ez genuen huraxe **entzunarazi** zigun orduan Tomasek. Koldo Izagirre

-O anai Leon! Anaia txikiak itsuak argitu, konkortuak zutitu, deabruak jaurti eta gorrei **entzunarazten** badie ere [...] idatz ezazu ez dagoela hor poz betea. Askoren artean

Txahala egin behar zuen behiak ozen **entzunarazi** zuen bere marruma. Koldo Biguri

Haserre eta triste, lapurreta horren aurrean inor gutxik **entzunarazi** duelako bere ahotsa. Edurne Elizondo

Sakratua profanatuz, tabua poesia bihurtuz, norma hautsiz **entzunarazten** du bere ahots urgentea poetak, rock&roll-etik heredatutako posea bere eginez. Berria - Kultura

Grebaren bosgarren egunean sirenak eta txistu hotsek hartu zuten Donostia eguerdian, langileen aldarrikapenak **entzunarazteko**. Berria - Ekonomia

Ezkerreko indarrek beren boza **entzunarazi** behar dute, eta batera lan egin. Berria - Harian

Gure hitza **entzunarazteko** aukera bakarra da hori. Berria - Mundua

Borta guziak bortxatzen zituen, prefeturakoak, apezpikutegikoak, polizategikoak, auzitegikoak, herriko-etxekoak, bere mezuaren **entzunarazteko** eta behar zituen bultzaden ardiesteko. Michel Oronoz

Lats urri batek atariaren aurretik bere zurrumurru etenkorra **entzunarazi** nahian. Txillardegi

Jose Maria Iparragirre gipuzkoarrak, Larresoroko seminarioraino **entzunarazi** zituen I. Karlistaldiaren oihartzunak. Piarres Xarriton

Atzeta aldera abiatzera zihoan trenak bere txistualdi zorrotz luzea **entzunarazi** du bazterretan. Txillardegi

Jo eta jo segitzen zuen kanpaiak, haizeari, zeruari, itsasoari bere mezu erritmikoa **entzunarazi** nahirik. Fernando Rey

Lekutu aitzin, beren mehatxua **entzunarazi** ziguten: [...]. Aingeru Epaltza

Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez kaleetan bere mintzoa **entzunaraziko**. Elizen arteko biblia

Neure hitzak **entzunaraziko** dizkiet, beti nireganako begirunean bizitzen ikas dezaten. Elizen arteko biblia

Hitzaldi hori, maltzur izan beharrarena, ez zen berria gure artean: sarritan **entzunarazia** zidan jadanik Albertok. Juan Garzia

Lehentxeago, ederrak **entzunarazi** dizkiot astakirten moduko bati, apropos ari baitzen ni zapaltzen. Xabier Olarra

Aitak, batez ere, buruan sartua zuen ongi **entzunarazi** behar zidala Gallinonek esaten zuena, eta, hartara, ikasiko nituela ez nekizkien eta jakin beharko nituzkeen gauzak. Pello Lizarralde

Eta entzun nahi nuke, eta zuekin, entzuleak, entzunen dut, zeren Mikel Markez **entzunaraziko** dautzuet. Menane Oxandabaratz

Basoak ardoz bete bitartean, mikrouhin-labe batek bere marmaria **entzunarazi** zigun sukaldetik. Aingeru Epaltza

Aukera eta zailtasunez betetako une honetan gizarte lehentasunak ozen **entzunaraztea** funtsezkoa da. Berria - Euskal Herria

Heldu den 24ko manifestazioak gizartearen ahotsa «ozenki eta garden **entzunarazi**» nahi duela erantsi zuen. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahotsa entzunarazi (10); **ahotsa entzunarazi nahi** (3); **ahotsa entzunarazteko** (9); **bere ahotsa entzunarazi** (4); **boza entzunarazi** (3); **entzunarazi behar** (4); **entzunarazi du** (4); **entzunarazi nahi** (7); **entzunarazi zigun** (3); **entzunarazi zuten** (3); **entzunarazteko eta** (5); **gure ahotsa entzunarazteko** (3); **hitza entzunarazteko** (3); **ozen entzunarazi** (3)

---

entzunbide *iz* entzuteko bidea.

Belarri erraldoi baten **entzunbidearen** forma zuen failak. Jon Muñoz

---

entzundegi ik **entzuntegi**.

---

entzunerraz *izond* entzuteko erraza.

Hitzak osatzen dituzten hotsak ez dira bereizgarri bakarrik izaten, gainera, ebakigarri, konbinagai eta hautemangai (artikulatuak eta **entzunerrazak**) izan behar dute. Lourdes Oñederra

Eta horien artean *Belle&Sebastian* dugu talde **entzunerrazena**, dotoreena eta xumeena. Berria - Kultura

---

entzunezin *izond* ezin entzunezkoa.

Soinu **entzunezinak** jo izan balitu bezala, biolina nekatu arte. Felipe Juaristi

Isilaren barnean baitira hitz mutuak eskura jausten, ezpainen murmurika **entzunezinak** airean zizelkatu dituen ahotsak mahaiaren gainera erortzen direla, naturak berak ez baitu oihartzunik eskaini. Piarres Aintziart

-Dagokizuna? -esan nuen ahots ia **entzunezinez**. Ander Irizar

Oihu aldi berean ozen eta **entzunezinen** artean Han ere espiritu hutsal bihurtua zela jabetu zen, aurrean zuen gizonarentzat ikusezin, **entzunezin**, ukiezin, atzemanezin guztiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure maistra Irene ere han barruan zegoela ulertu genuelako, beste preso askorekin batera, ikusezinak, **entzunezinak**, horma saihestezin haren bestaldean, hantxe bertan baina munduaren bestaldean baleude bezain urrunak. Joseba Sarrionandia

Hezur eta haragiko izateari utzi eta ikusezin bihurtzen ziren, ikusezinak egiten ziren haien esku-hankak, ikusezinak haien aurpegiak, **entzunezina** haien ahotsa. Felipe Juaristi

Marmarra bertan zen, lerroaren erdian, ia **entzunezin** betiere, baina etengabe, lurpeko burrunba baten gisan. Urtzi Urrutikoetxea

Ia **entzunezin**, oso goian eta urrun, zeruan oihu bat entzun zuela iruditu zitzaion: ahula baina beldurgarria, krudela eta hotza. Agustin Otsoa

Arreta berezia jarri beharko du itzultzaileak, urrutiko denboren eta tokien ahots arrotzekin ohitzeko, oihartzunik **entzunezinenak** ere jasotzen ahalegintzeko. Anjel Lertxundi

Mintzorik eta hitzik gabe: **entzunezinekoa** da haien ahotsa. Elizen arteko biblia

---

entzunezko **1** *izlag* entzutearen bidezkoa, entzutekoa.

«Jorge Oteizarengatik eta Jorge Oteizarentzat prestatutako lana» eskainiko du Antzerkiola Imaginarioak: *Hutsaren hotsa* **entzunezko** pieza. Berria - Kultura

Inpresio-sekuentzien bidez antolatzen dituzte itsuek beren munduak (ukituzko, **entzunezko**, usnazko munduak, alegia) eta ez dira gauza, ikusmena dugunok bezala, aldi bereko ikusmenezko pertzepziorako, ikusmenezko eszena bat-batekoak eratzeko. Xabier Olarra

Entzunezkoen artean, baziren diskoak, kaseteak eta hi-fi kate bat. Jon Muñoz

2 ***ikus-entzunezko***sup_1 *(orobat* ***ikusentzunezko*** *g.er.) izlag*

Emanaldia **ikusentzunezko** formatoan grabatzeko asmoa du San Franciscoko bandak. Berria - Kultura

Ikus-entzunezko arte garaikidea ulertzeko modu berri bat. Berria - Kultura

75 gobernu badira munduan oso gertutik kontrolatzen dituztenak **ikus**-entzunezko hedabideak. Pello Salaburu

Ramon Zallo **Ikus-entzunezko** Komunikazioetako katedradunak. Berria - Kultura

Ikus-entzunezko tresna-mordo handi batez inguratuta zegoen. Jon Muñoz

Baina ongizate birtualak bizi-kaiolako gela bakoitzean gutxienez **ikus-entzunezko** gailu bana ezarri duenetik, [...]. Iñaki Segurola

ik ikusentzungailu.

Ikus-entzunezko kasete batzuetan. Joxan Elosegi

Behe-solairuan harrera gela, liburutegia, **ikusentzunezkoen** gela, bilera gelak. Berria - Kultura

DVD eta **ikusentzunezko** baliabideak. Berria - Kultura

Ikusentzunezko Kontseilu Gorenean salaketa jarri zuten. Berria - Mundua

· Haririk gabeko transmisioen **-ikus** nahiz entzutekoen- forman. Iñaki Mendiguren

3 *ikus-entzunezko*sup_2 *iz*

Elkarlan sindikalari buruzko **ikusentzunezkoa** eman zuten gero. Berria - Ekonomia

Diskotetak, **ikus**-entzunezkoen denda, klub bat, eta izkina batean "Afrika Batua"ren argi basatiak. Pako Aristi

Jaurlaritzak ulertu du **ikus**-entzunezkoen arloa ez dela soilik kultura, industria ere badela. **Ikus-entzunezkoak** proiektatzeko pantaila. Berria - Kultura

Lehen, **ikus-entzunezkoen** hastapenetan, oso toki jakinetan (taberna batzuetan eta) izaten zen irratia, eta gerora, telebista. Iñaki Segurola

Ikus-entzunezkoen eta bereziki telebistaren mende bizi diren pertsonak. Txema Ramirez de la Piscina

Euskal zinematografia eta **ikus-entzunezkoen** ekoizpena egonkortu nahi da. Berria - Kultura

Iruditzen zait elkarrizketaren berezko esparrua **ikus**-entzunezkoarena dela, hor adierazten dela hoberen norbaitek zer esaten duen. Ana Urkiza

Ikus-entzunezkoena industria estretategikoa da.. Berria - Kultura

Ikus-entzunezkoen Europako Legea. Berria - Euskal Herria

Nafarroako **Ikusentzunezkoen** Kontseiluko presidente Ramon Bultoren agerraldia eskatu du. Berria - Euskal Herria

IBAIA Euskal **Ikus-Entzunezkoen** Ekoizle Burujabeen Elkarteko lehendakari da. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

donostia ikus entzunezkoen (3); **du ikus entzunezkoen** (3); **duen ikus entzunezko** (4); **entzunezko hedabideak** (5); **entzunezko hedabideen** (3); **entzunezko komunikazioa** (3); **entzunezko kontseiluak** (5); **entzunezko lanak** (5); **entzunezko saioen** (12); **entzunezko saioen nazioarteko** (10); **entzunezkoen alorra** (4); **entzunezkoen alorrean** (3); **entzunezkoen alorreko** (3); **entzunezkoen arloa** (3); **entzunezkoen arloan** (6); **entzunezkoen arloko** (4); **entzunezkoen europako** (9); **entzunezkoen europako legea** (7); **entzunezkoen euskal** (6); **entzunezkoen euskal ekoizle** (6); **entzunezkoen finantzabidearen** (3); **entzunezkoen jaialdian** (3); **eta ikus entzunezko** (13); **eta ikus entzunezkoen** (15); **euskadiko ikus entzunezko** (3); **fipa ikus entzunezko** (7); **herriko ikus entzunezko** (3); **ibaia ikus entzunezkoen** (4); **ikus entzunezko** (164); **ikus entzunezko hedabideak** (5); **ikus entzunezko hedabideen** (3); **ikus entzunezko komunikazioa** (3); **ikus entzunezko kontseiluak** (5); **ikus entzunezko lanak** (5); **ikus entzunezko saioen** (12); **ikus entzunezkoen** (112); **ikus entzunezkoen alorra** (4); **ikus entzunezkoen alorrean** (3); **ikus entzunezkoen alorreko** (3); **ikus entzunezkoen arloa** (3); **ikus entzunezkoen arloan** (6); **ikus entzunezkoen arloko** (4); **ikus entzunezkoen europako** (9); **ikus entzunezkoen euskal** (6); **ikus entzunezkoen finantzabidearen** (3); **ikus entzunezkoen jaialdian** (3); **kataluniako ikus entzunezko** (5)

---

entzungabe ik **entzun 6**.

---

entzungai

1 *entzungai izan* entzuteko moduan izan.

New Yorkeko alkate izandako Rudolph Giulianiren eta irailaren 11ko erasoetan senideak galdu zituztenen lekukotzak izan ziren atzo **entzungai** Zakarias Moussaouiren kontrako epaiketan. Berria - Mundua

Straussek konposaturiko doinuak izango dira **entzungai**. Berria - Kultura

Duela gutti "Planètes musiques" festibalean gaitzeko arrakasta ukan duten artista batzu **entzungai** izanen dira herriko plazan. Herria

Argazkiekin batera, bozgorailuetatik torturatuen zuzeneko testigantzak **entzungai** ziren. Berria - Euskal Herria

Garrasi-eskala osoa izan zen **entzungai** haren ostean. Mirentxu Larrañaga

2 (beste aditz batzuekin)

Euskal Herri osoko musika talde berri eta gazteak bildu eta Musikalen **entzungai** jarri zituzten. Berria - Kultura

Umore txarrean nintzelarik bera ezartzen nuen **entzungai** bezala. Menane Oxandabaratz

Kaskezurra mila puskatan hautsi zen lurrean, azantz xehe eta bustia **entzungai**. Itxaro Borda

Musika **entzungai** eta eskuragai sarean. Berria - Kultura

3 (izen gisa)

Horrexegatik kontatzen dituzte mirakuluak, edo beste arrazoiren batek bultzaturik, gizateria oro **entzungai** gozoen egarri baita. Xabier Amuriza

---

entzungailu 1 *iz* entzuteko tresna.

Entzungailu batzuen bitartez, liburuko pasarteak entzuteko aukera dauka ikusleak. Berria - Kultura

Arnasa zelan hartzen duten aztertzeko, bularrean **entzungailua** jartzen badiegu, ikusiko dugu txistu egiten dutela. Berria - Gaiak

Goizean ikusitako irrati-kasete antzeko hartatik **entzungailuak** ateratzen ziren. Fernando Morillo

Entzungailua hartu eta garrasi egin zuen, "Bai!". Koro Navarro

-Esan? -erantzun zuen mutilak **entzungailua** hartuta-. Mirentxu Larrañaga

Telefonora hurbildu eta **entzungailua** eskegi du. Xabier Paya

Entzungailuak belarrietan jarrita, **Entzungailua** beharriaren barnean kokaturik, mikroa hari batean diskretuki dilindan ezarria. Ramuntxo Etxeberri

Orduan **entzungailua** belarrira eraman eta zain geratu zen. Koro Navarro

Mutilak **entzungailua** bere kakotik altxatu eta mahai txikiaren gainean utzi zuen luze-zabal. Mirentxu Larrañaga

Belarrira eraman du telefonoaren **entzungailua**, baina seinaleak normala dirudi. Iban Zaldua

Edith Packer-ek belarrian sartuta zuen kasetearen **entzungailua**, eta senarrari hartutako zigarreta bat erretzen ari zen. Koro Navarro

Sen hutsez, belarritik urrundu nuen **entzungailua**. Aingeru Epaltza

Entzungailuko botoia sakatu Giuliettak, eta isildu egin zen Perretteren ahotsa. Jon Muñoz

Amaiak **entzungailuaren** bolumena mugaraino igo zuen. Fernando Morillo

Radiohead-en azkeneko diskoaren nota ozenek, **entzungailutik** heltzen baitzitzaizkidan, norbait ate joka zebilela entzutea eragotzi zidaten. Iban Zaldua

Bakelitazko **entzungailua** belarriaren ondoan nuen eta orain nasara begira nengoen. Fernando Rey

Segurtasun distantziak edo neurriak ez betetzea; ondo ikusten ez den lekuetan argirik gabe zirkulatzea; edozein gailuri (sakelako telefonoa, irratia...) konektatuta dagoen **entzungailuak** erabiltzea gidatzeko orduan. Berria - Euskal Herria

Eskandalua **entzungailuak** edo grabagailuak deskubritzen direnean sortzen da soilik. Berria - Mundua

Bi **entzungailuko** aparatuak bi **entzungailu** eta bi mikrofono ditu, bakoitza pertsona batentzat. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Erosleentzat ezarriak diren **entzungailu** kaskoak erabiliz, jastatzen dituzu berritasunaren xarma duten melodiak. Ramuntxo Etxeberri

Hasirik Dascontarretarik, auzapez eta "süjet" eta hor ikusi aitzineko pastoral idazle, kantari, laguntzale, musikari berri eta zahar, bai-eta pentze-taulagain eta **entzungailu** moldatzaileetaraino. Herria

· Disko **entzungailua** zegoen tokiraino hurreratua zen Mentxu. Josu Landa

Telefono-**entzungailua** eseki gabe utzi? Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bi entzungailuko (4); **entzungailua eskegi** (3); **entzungailua hartu** (6); **entzungailua hartu zuen** (4); **eta entzungailua** (4); **zuen entzungailua** (3)

---

entzungaitz *iz* entzuten zaila dena, ia ezin entzunezkoa.

Zure orduak ilunpean pazientziaz zenbatu eta neurtzen ditu, zure bidean taupada **entzungaitzekin** lagun egiten dizu. Eduardo Matauko

Orain etxea isiltasunez betea da, taupada **entzungaitza** baizik ez da igartzen, hiriaren arnasbeharra izan daiteke, edo ibaiaren mugimendua, edo, besterik gabe, zuzentzailearen bihotza. Jon Alonso

Urmael borobileko ur-xirri **entzungaitza** han, beti ari. Txillardegi

Komuneko atea irekitzen aditzearekin, **entzungaitz** bilakatu zitzaizkidan zuzendariordearen hitzak. Aingeru Epaltza

Ez dugu kontzertu **entzungaitz** bat eginen. Berria - Kultura

---

entzungarri **1** *izond* entzun daitekeena, entzuteko modukoa.

Maiztasun **entzungarri** altuenaren eta apalenaren artean 2.000 garaiera maila inguru bereizten dira. Irene Aldasoro

Airea eta beste gas batzuk ia beti izaten direnez urdailean, bor-bor **entzungarri** bat sortzen du batzuetan irabiaketa horrek. Irene Aldasoro

Beste arazo bat, berriz, seinale **entzungarriak** nahiko konplikatuak izateak sortzen du, garaieraren, harmonikoen eta iraupenaren mende baitago informazioaren edukia. Irene Aldasoro

Albiste **entzungarria**, inondik ere. Antton Olano

"Balioen krisi larri bat bizi dugu", **entzungarriago** eta modernoagoa egiten da "morala krisian dago" eliz kutsukoa baino. Joxe Azurmendi

Tren guztian **entzungarri** izango den audio sistema ere izango dute. Berria - Ekonomia

Eta da Rua eroa denen aurrean, oholtzaren gainean zegoen, angelu guztietatik ikusgarri, alde guztietatik **entzungarri**. Felipe Juaristi

Handik pixka batera, abarrots askorik gabe, korroka-hots xume baina **entzungarri** batez, sumendiaren ahoak gizon bat bota zuen kanpora. Felipe Juaristi

Ez dira ahotsak bezain **entzungarri**, baina soinuak dira, jaiotzetik heriotzarainoko bidean gorputzak behin eta berriro egingo dituenak. Felipe Juaristi

Entzungarriak izan ziren haien oin-pausoak marmolezko eskaileretan behera jaitsi zirenean; **entzungarriak** haien armen karranka-hotsa, bizkarretik eskura ekarri zituztenean. Felipe Juaristi

Oso **entzungarria** gertatu zen gitarra akustikoa eta elektrikoaren giroa. Berria - Kultura

Kantuan hasi ziren presoak, gero eta ozenago, gero eta **entzungarriago**, gero eta adoretsuago. Felipe Juaristi

Teilatu gaineko euriaren hotsa **entzungarriagoa** da, indar txikiagoz erortzen den arren. Jon Alonso

Izena ezaugarri **entzungarrien** zeinu **entzungarria** da; beste zeinu **entzungarriak** ere ezaugarriak dira, baina ez ezaugarrien ezaugarri, gauza ikusgarrien ezaugarri baizik. Imanol Unzurrunzaga

Txistukariak izaten dira nabarmenenetakoak, igurzkari indartsu eta **entzungarrienetakoak** direlako. Lourdes Oñederra

Hartaz (gorets bedi!) "badakusala" diogunean, horrekin adierazten duguna hauxe da, gauza ikusgarriak hautematen dituela; eta "badantzuela" diogunean, **entzungarriak** dituela hautematen. Xabier Kintana

2 (izen gisa)

Ikusgarri edo **entzungarriekin** betan, ohidurezko ala berdin gaurko mendeaz asmatu gaietaz osatuak direnak. Herria

Aratseko 8.30etan elizan, **entzungarri** handia: Iruñea, Eltziego, Tutera, Bilbo, Baigorri, Txingudi, Baiona eta Uztaritzeko gaiteroak. Herria

Egun osoan, herriko salguneak idekiak izanen dira zuen Eguberriko erosketen egiteko eta aratsalde apalean beraz, kalitate haundiko **entzungarri** bat eskainia izanen zauzue. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
entzungarri egin (4); **eta entzungarri** (4)

---

entzungarritasun *iz* entzungarria denaren nolakotasuna.

Bestalde, **entzungarritasunaren** aldetik, *ß* hots leunagoa da *b* baino. Lourdes Oñederra

Bokal sudurkariak ahokariak baino **entzungarritasun** eta nabarmentasun gutxiagokoak dira, eta hizkuntzek, bokal mota bakarra izatekotan, bokal ahokariak izaten dituzte beren paradigmetan. Lourdes Oñederra

---

entzungela *iz* entzungarri bat gertatzen den gela. ik **entzuntegi**.

Entzungela jendez gaindika omen zen, irakasle eta ikasle asko zaudela bildurik, eta denek oso gostura gozatu dituzte hemengo bi gazteen bertsuak. Herria

---

entzungor **1** *izond/iz* entzun nahi ez duena, entzungor egiten duena.

Ewing jaunak, esan ohi zuen senarraren belarri **entzungorren** gibelean, ez zion alferrik deitu izan beti "itutxo prestu eta eraisgarria". Mirentxu Larrañaga

Entzungorrak alde batera utzita, hitz egiteko gaitasuna dugunon artean elkarrizketa abiatzeko ordua da. Berria - Euskal Herria

Telebista publikoko langileen artean nabaritu zen lehendabiziko bihurrialdia, haatik, **entzungorrentzat** keinuzko albisteak aurkezten dituen Natalia Dmitrukek egin zuen herenegun bertan. Berria - Mundua

Frantziak horrelakorik ez badu obratzen ikusi nahi, **entzungorraren** jarrera utzi eta ofentsibara pasatu beharko du. Berria - Harian

2 ***entzungor egin*** eskabide, abisu edo aholku batez mintzatuz, jaramonik ez egin, ez entzunarena egin.

Baserritarrak bazekien **entzungor egiten**, gurpilei beha gelditua zen. Koldo Izagirre

Eri-gelan dagoen jendeak nahitaez entzuten du -beharko entzun-, baina, nik uste, **entzungor egiten** du, edo aintzat hartu ez. Xabier Olarra

Antza denez, gidariak **entzungor egin** zien guardia zibilen abisuei. Berria - Kirola

Paristarrek, ordea, **entzungor egiten** zieten alarma-deiei: pentsatzen zuten zurrumurru interesatuak zirela. Anjel Lertxundi

-Aberastasun makur bilduak, laburra irabazia! -jaurti zion Léak Ruche jaunari, baina hark **entzungor egin** zion. Jon Muñoz

Galesko Legebiltzarrak **entzungor egiten** diela ikusita, legearen kontrako ekintza zuzeneko kanpaina abiatuko dutela iragarri dute. Berria - Mundua

Hala ere, faraoiak bere teman jarraitu zuen eta **entzungor egin** zien, Jaunak esan bezala. Elizen arteko biblia

Baina Charliek **entzungor egin** zidan, edo ez zidan jaramonik egin. Mirentxu Larrañaga

Entzungor egin nion eta hizketan segitu nuen. Mirentxu Larrañaga

Ez genuen baiezkako hizketarik behar den tamainan ikasi: erakutsi ziguten, saiatu ziren eginahalean, baina [...] ez genuen gogo onez ikasi, **entzungor egin** genion. Iñaki Segurola

Badakigu dei horri frantses gehienek **entzungor egin** zietela, orduan garaile agertzen zirenekin hautsi-mautsia egitea izan zela jokaera jarraituena. Berria - Kultura

Ekologistek nahi izan zutelarik debekatu ingeniaritza genetikoari buruzko ikerketek aurrera egitea, **entzungor egin** zitzaien, eta gaur egun medikuntza guztia oinarritzen da geroztiko ikerketetan. Juan Garzia

Ez diete inoiz **entzungor egiten** laguntza eske joaten direnei, are gutxiago emakume bati. Fernando Rey

Egiaz mintzatu zen, xalotasunez, eta Hamidak ezin haren ahotsaren beroari **entzungor egin**. Patxi Zubizarreta

Ez egin **entzungor** nire negarrari! Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina entzungor (3); **egin entzungor** (5); **egin entzungor nire** (4); **entzungor egin** (60); **entzungor egin die** (6); **entzungor egin eta** (4); **entzungor egin zien** (8); **entzungor egin zion** (3); **entzungor eginez** (17); **entzungor egingo** (5); **entzungor egitea** (3); **entzungor egiten** (32); **entzungor egiten die** (3); **entzungor egiten du** (3); **entzungor ez** (6); **entzungor ez egiteko** (3); **entzungor nire** (4); **eskaerei entzungor** (4); **eta entzungor** (8); **eta entzungor egin** (3); **eta entzungor egiten** (3); **ez egin entzungor** (5); **galderei entzungor** (3); **guztiei entzungor** (5); **protestei entzungor** (3); **salaketei entzungor** (3)

---

entzunketa ik **entzuketa**.

---

entzunkizun 1 *iz* entzunezko emanaldi jendaurrekoa.

Preziatu baino gehiago egin du publikoak, xoraturik ateratu da elizatik, hain zaio kalitate handiko **entzunkizuna** eskainia izan. Herria

Arras ederki joan den Traboules antzerki taldeak antolatutako astebeteko besta, bere ikusgarri eta **entzunkizun** bereziekin. Herria

2 *ikus-entzunkizun* *iz*

Larunbatean, iparralde huntako etxe-mozkinen eguna izanen da, aratsaldean Baigorriko Arrola dantza taldeak eta Erramun Martikorena kantariak beren **ikus-entzunkizuna** eskainiko dutelarik. Herria

Itsas Soinua elkarteak antolaturik, Miarritzeko Herriko Etxeko kultur zerbitzuen laguntzarekin, musika klasikoak toki handi bat ukanen du, uda guzian proposatuak zaizkigun **ikus-entzunkizunen** artean. Herria

---

entzuntegi *(ETCn **137** agerraldi; orobat **entzundegi** ETCn **11** agerraldi) iz ipar* auditoriuma. ik **entzutegi**.

Kontzertu guziak Ravel **entzuntegian**, aratseko 8ak eta erdietan. Herria

Ortzegunean, aratsaldeko 2-ak eta erdietan, Ravel **entzuntegian**, "Olerkiz-Olerki", Iratzeder euskaltzainaren poema irakurketa. Herria

Txotxongilo emanaldi asko eskainiko da, bai haurrentzat bai helduentzat, hiru gune desberdinetan: Les Variétés salan, Beltzenia pilotalekuan bai-eta Irungo Ficoba **entzuntegian**. Herria

Otsailaren 14ean,ortzirale goizeko 11.30 etan, Alain Lamassoure euro-deputatuak mintzaldi bat eskainiko du Baionako komertzialdegiko **entzuntegian**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lohizuneko ravel entzuntegian (3); **ravel entzuntegian** (40)

---

entzute 1 *iz* entzumenaren bidez sumatzea.

Munduaren Hirugarren Aroaren amaieran, joandako urteen **entzuteak** eta oroimenak aro berriaren gogoan iraun zuten. Agustin Otsoa

Zenbait urte hauetan "tourra" hemendik eta "tourra" handik **entzute** eta irakurtze horrek nola min egiten ziguten guri, askotan errana dute HERRIAn. Herria

2 (izenondoekin)

Sei metroko burdintzarrak mendiaren eta itsasoaren arteko elkarrizketa proposatzen zuen; hitz egite eta **entzute** aktiboa. Fernando Morillo

- **Entzute** errazeko musikaz. Iñaki Zabaleta

Hizkuntza ezaguna denean ere, denoi gertatu zaizkigu **entzute** okerrak hitz ezezagunak iristen zaizkigunean belarrietara. Lourdes Oñederra

Mutil gazteentzat ona zen [...] hari **entzute** soila, hari begiratze soila. Anton Garikano

Alaigarria da zuri **entzute** hutsa -esan zuen bisitariak-. Jose Morales

Haren eder sotilaren **entzute** hutsez nagoela harengana maitemindua. Patxi Ezkiaga

Kurten izena **entzute** hutsak begiak arranpalo utzi zizkion aitari. Anjel Lertxundi

Benetan diotsut, barrea eragiten didate **entzute** hutsarekin. Mirentxu Larrañaga

Haren izena **entzute** hutsarekin dar-dar hasten dira gazteen bihotz kartsuak, eta ororen begietan distiratzen dute esker oneko malkoek. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Donostian alokatutako etxean zeukan **entzute**-sistemak soinu oro grabatuta uzten zuen. Fernando Morillo

Garun-azalean daudela, itxuraz, oroimenaren alderdi konplexuak, ikuste- eta **entzute**-esperientzien oroitzapen eta asoziazioarekin zerikusia dutenak. Irene Aldasoro

Sor ote liteke ikusteedo **entzute**-sentipena garuna zuzenean elektrizitatez estimulatuz? Irene Aldasoro

Hasieran egun batean bai, bestean ez, joaten zen Faraskourera, gero, lan askorik ez eta, **entzute**-egunetan baizik ez zen joaten, hau da, astean bitan. Pablo Sastre

4 ospea, omena.

Baina Daguerreren **entzute** eta ospea zela eta, bere aurkikuntza oharkabean joan zen. Joxemari Urteaga

Fakzioko herri xehearen aurrean **entzute** eta botererik handiena dutenak nola bereganatu aztertzeko. Esteban Antxustegi

Lyonen, berriz, arte garaikideko biurtekoaren barruan bere lanak **entzute** nabarmena lortu zuen. Berria - Kultura

Horixe izan zen, hain zuzen, Tiresias igarle sonatuaren kasua, zeinak **entzute** handia bereganatu baitzuen hainbat jende ospetsuri patua igartzen; besteak beste, Narziso, Edipo eta Herkulesi. Juan Garzia

Bazen hauen artean **entzute** handiko zaldun bat, gizon ospetsua, Jeronimo zeritzana. Askoren artean

Arma zuri damaskinatu horietako bat, Karxiko eta Hissarreko armagin **entzute** handikoek gogor-malgutua. Karlos Zabala

Entzute handiagoa izango nuen mundu guztian gainera. Hasier Etxeberria

5 *ikus-entzute*

IBAIAk [...] Euskal Herriko eta Pirineoz bestaldeko ikus-**entzute** enpresen topaketa antolatu du bihar Miarritzen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

entzute eta (3); **entzute handia** (8); **entzute handiko** (7); **entzute handikoa** (3); **entzute hutsak** (7); **entzute hutsarekin** (6); **entzute hutsez** (3); **eta entzute** (5); **izena entzute** (4); **izena entzute hutsak** (3)

---

entzutearren *adlag* entzuteko.

Haurrak balira bezala baitatoz, hitz abegitsuren bat **entzutearren** edo bizkarrean zapladatxo batzuk hartzearren. Joan Mari Irigoien

Eztabaidak hasiak ziren, baina denak aho batez isildu ziren berriak **entzutearren**. Joanes Urkixo

Ni, batzuetan, hobeto **entzutearren**, atearen bestaldean jarri ohi nintzen, eta inbidia sentitzen nuen, eta nostalgia; amak bainatzen nindueneko mira, pentsatzen dut. biraoka hasten zenean jendea leihoetara irteten zen hura **entzutearren**, batez ere gure kalean amarekin zituen liskarretan. Ramon Saizarbitoria

Horregatik, askotan, belarriak kotoiez estaltzen ditu, lepo-hezurraren etendura hozkitsua edo sabeletik irteten den azken hatsaldi itoaren erregua ez **entzutearren**. Karlos Linazasoro

Nik, Tomen zurrungak ez **entzutearren**, Moab herrixkaraino etorri naiz, garagardo bat hartzera eta, ça va de soi, zuri deitzera, ze gaur ere badut zer kontatua. Patxi Zubizarreta

---

entzutegi *(ETCn **2.498** agerraldi) iz* lurralde jakin bateko auzi eta prozesuetan aginpidea duen epaitegia. ik**entzuntegi**.

Falta epaiketa izanda, akusatuak ez zuen nahitaez **entzutegira** joan beharrik, eta nahiago izan zuen ez joan. Berria - Euskal Herria

Hiri honetako **Entzutegian** ez zen polizia baten bertsioaz sinesgogor agertuko zen jujerik, horretarako lurra zapala dela onartu behar bazuen ere. Aingeru Epaltza

Irungo epaitegi batek Porcelanas Bidasoaren aurka hartutako neurriak bertan behera utzi ditu Gipuzkoako **Entzutegiak**. Berria - Kultura

Bizkaiko **Entzutegiak** Brouarden epaian erabili duen filosofia gainerako **Entzutegietan** ere erabiltzea. Joxerra Garzia

2 (izenondoekin)

Ertzaintzak Ekaitz atxilotu, **Entzutegi** Nazionalaren aurrera eraman, eta kale-borrokako ekintzetan parte hartu izana leporatu zioten. Iban Zaldua

Lanzaroten atxilotutako ustezko bi ekintzaile islamistei baldintzarik gabeko kartzela zigorra ezarri zien atzo **Entzutegi** Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak. Berria - Mundua

Apirilaren bata da, eta ez daki handik urtebetera **Entzutegi** Nazionaleko epaileak ahozko epaiketaren hasiera aginduko duela hamalau akusatuen aurka. Pako Aristi

Zigorra bost urtera igota, kasua **Entzutegi** Probintzialera pasatu zuten. Berria - Euskal Herria

«Nire deklarazioa egoitza judizialean egin dut, ez **entzutegi** publiko batean», salatu zuen. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Nafarroako Justizia **Entzutegi** Nagusiaren erabakia irratiko kideek uste baino gehiago atzeratzen ari da. Berria - Harian

4 entzundegia.

Biak Ravel **entzutegian** eginen dira, aratseko 8ak eta erdietan. Herria

Meategiko sala batean egun seinalatuetan orkestra batek Mozarten musika jotzen baitzuen, edozein antzoki eta **entzutegi** baino garbiago jo ere. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

entzutegi nazionalean (3); **entzutegi nazionaleko** (5); **espainiako entzutegi** (7); **espainiako entzutegi nazionalak** (3)

---

entzuteke *adlag* entzun gabe.

Nahi beste egin zuten hitz ordezkariarekin atxilotuek, guk **entzuteke**. Koldo Izagirre

Hi eta biok han, errezo azkengabeak errezatzen, berak ezer **entzuteke**, hik eta biok ezer **entzuteke**, gauaren azpiko haizearen ozentasunean galdurik den-dena. Juan Garzia

Hemeretzi urte bizi izan zen ametsetan dagoena bezala: ikusteke begiratzen zuen, **entzuteke** entzuten zuen, dena ahazten zuen, ia dena. Juan Garzia

---

entzutetsu 1 *izond* ospetsua, entzute handikoa.

Pedro González de Velasco sendagile **entzutetsuaz** ari naiz. Anjel Lertxundi

Gedeon juduen kapitain **entzutetsuaren** garaipena. Jon Alonso

Basorako teologo **entzutetsua** eta, halaber, herri sinesmenean errotua. Patxi Zubizarreta

Renan izan da "arima zeltaren" kantari **entzutetsuenetako** bat XIX. mendean. Joxe Azurmendi

Ikasketak egin ondoren Wall Street Burtsa **entzutetsuan** lan egiten hasi zen. Gotzon Garate

Hantxe geneukan, geure aurrean, "Les Bains Napoléon" izeneko batimendu **entzutetsua**. Txillardegi

Hainbeste katea ttiki, turkesez eginak, hainbeste firuzeh, Elburzeko meategi **entzutetsuetatik** atereak. Karlos Zabala

Bertan da harri urdinezko eserlekua gordetzeagatik hain **entzutetsua** den jauregia. Karlos Zabala

Izurririk **entzutetsuena**, beharbada, "izurri beltza" izan zen, han, 1348-1350 urteetan. Gotzon Garate

Azken urte hauetako kasu **entzutetsu** batek *Life of Pi* eleberri interesgarria izan zuen protagonistatzat. Iban Zaldua

Eskarmentu on bat eman nahi izan zioten emakume desitxuratu hari, eta, errege eta enperadore handi hura bertan izanik, epai **entzutetsu** eta ospetsua egin nahi izan zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Igandean hasiko da Eguzkiaren lasterketa goitizena duen proba, Paris-Niza **entzutetsua**. Berria - Kirola

Azken hamar urteetan Italian gertatutako finantza eskandalurik **entzutetsuena** izan da Parmalat enpresarena. Berria - Ekonomia

Lieja-Bastogne-Lieja proba handi bezain **entzutetsua** korrituko da gaur. Berria - Kirola

Orduantxe zerbitzari bat agertu zitzaion, farik plater **entzutetsua** ekartzera. Patxi Zubizarreta

David Politzerrek quark partikulen askatasun asintotikoaren inguruko lan bat bidali zuen Ameriketako Fisikaren Elkartearen aldizkari **entzutetsura**. Berria - Gaiak

Chrétien de Troyes idazleak ondu zituen gai horri buruzko libururik **entzutetsuenak**. Juan Kruz Igerabide

2 (adizlagunekin)

Oso **entzutetsua** izan zen 1918ko gripea. Gotzon Garate

Erromatarrek bazuten esaera txit **entzutetsua**: "Si vis pacem, para bellum". Gotzon Garate

Oso erakunde **entzutetsua** bihurtu da Nazioarteko Diru Funtsa. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkari entzutetsuan (6); **artean entzutetsuena** (3); **bankaririk entzutetsuenak** (5); **entzutetsua da** (3); **entzutetsua izan** (5); **entzutetsua izan zen** (4); **entzutetsuak ziren** (3); **hiriko bankaririk entzutetsuenak** (3); **lancet aldizkari entzutetsuan** (3); **oso entzutetsua** (8); **oso entzutetsuak** (3)

---

entzutetsutasun *iz* entzutetsua denaren nolakotasuna.

Beren adimenetik sortutako gogoetak eta beren arauak liburukote lodietan idatzi dituztenek, oh Zesar, **entzutetsutasun** handia lortu izan dute, benetan, beren idatzi horiei esker. Santiago Iruretagoiena

---

enuit ik **inuit**.

---

enuldu *izond* erkindua.

Ortega-k behin baino gehiagotan ematen du aditzera, historia espainolaren misterioaren giltza definitibo hau -hastapen nazionalaren erkinarena arraza bisigodo **enulduaren** kariaz- argitasun guztizko hipotesitzat daukala berak. Joxe Azurmendi

---

enumeratu, enumera, enumeratzen du *ad* banaka aipatu.

Hasteko, Naturalis historiak jasotako oroimen miragarrizko kasuak **enumeratu** zituen, latinez eta espainieraz: [...]. Juan Garzia

---

enunerazio *iz* enumeratzea.

Enumerazio, metaketa edo konglobazioa. Juan Garzia

Enumerazio hori historiaren halako laudorio erretoriko bat besterik ez da. Juan Garzia

---

enuntziagarritasun *iz* enuntzia daitekenaren nolakotasuna.

Bera da [artxiboa], enuntziatu-gertaeraren sustraian bertan eta ematen den gorputzean, definitzen duena hasieran bere **enuntziagarritasun**-sistema. Xabier Arregi

---

enuntziatibo *izond* enuntziazioarena edo enuntziatuarena, enuntziazioari edo enuntziatuari dagokiona.

Laburbilduz, aurkitu dena ez da enuntziatu atomikoa [...], aurkitu dena funtzio **enuntziatiboa** jarduteko arloa da. Xabier Arregi

Modalitate **enuntziatiboen** eraketa. Xabier Arregi

Maila **enuntziatiboa** bere gertutasunean bertan zirriborratzen da. Xabier Arregi

Azterketa **enuntziatiboak** bakantasun-efektua hartzen du kontuan. Xabier Arregi

Formulazio baten halo psikologikoa arlo **enuntziatiboaren** kokapenak zuzentzen du urrunetik. Xabier Arregi

Aurkikuntza bat, ikuspegi **enuntziatibotik**, ez da erregulartasun txikiagokoa bera errepikatzen eta zabaltzen duen testua baino. Xabier Arregi

Hizkuntza maila ezberdinetan deskonposatutako objektutzat hartu, deskribatu eta aztertu ahal izateko beharrezkoa da "datu **enuntziatiboa"** egotea, beti mugatua eta ez amaigabea izango dena. Xabier Arregi

Kokapena enuntziatuen multzo finitu batek osatutako eremu baten barruan finkatzen da; dagoeneko gertatu diren gertaera **enuntziatiboen** sail batean aurkitzen da. Xabier Arregi

Sistema kontzeptualak kopuruz gutxi samar ziren eta konplexutasunik gabekoak eta bere erregimen **enuntziatiboa** nahikoa homogeneoa eta monotonoa zen. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **azterketa enuntziatiboak** (3); **gertaera enuntziatiboen** (3)

---

enuntziatiboki *adlag* era enuntziatiboan.

Enuntziatiboki ez da berbera. Xabier Arregi

---

enuntziatu[1], enuntzia, enuntziatzen **1** du *ad* adierazi; formulatu.

"Denbora luzez goiz oheratu izan naiz" motako enuntziatu bati dagokionez, **enuntziatzen** duen subjektuarekiko duen harremana ez da berdina ulertzen bada elkarrizketa baten harian artikulatua edo irakurtzen bada *A la recherche du temps perdu* deritzon liburu baten lehen lerroan. Asko jota, eta zorionez, berriz har daitezke kontuan irakurketan berriro aurkitzen direnean; asko jota, aurki daiteke euren baitan ikurrak daramatzatela eurak **enuntziatu** zireneko unera igortzen dutenak. Xabier Arregi

Azaldu ahal izango nituen arrazoiak [...] lehenengo pertsona singularrean **enuntziaturiko** argudioak izango ziren guztiak. Joxan Elosegi

Ez da, halaber, nahastu behar enuntziatu baten eta **enuntziatzen** duenaren arteko harremana, proposizio baten eta bere erreferentearen arteko harremanarekin. Xabier Arregi

Hala ere, nik uste dut erakuts daitekeela enuntziatuaren eta **enuntziatzen** denaren arteko harremana ezin zaiola gainjarri harreman horietatik bakarrari ere. Xabier Arregi

Enuntziatuak, baita bera izen sintagmara murrizten bada ere ("itsasontzia!"), edo izen berezi batera ("Kepa!") murrizten bada ere, berak **enuntziatzen** duenarekiko duen harremana ez da izenak berak izendatzen duenarekiko edo esan nahi duenarekiko duen harreman bera. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **berak enuntziatzen** (4)

---

enuntziatu[2] **1** *iz* esaldia, perpausa.

Irakurri arkatz bat eskura duzula [...] eta **enuntziatu** (edo paragrafo) garrantzitsuenak edo zailenak edo beharrezkoenak hautatu. Askoren artean

Ez da, halaber, nahastu behar **enuntziatu** baten eta enuntziatzen duenaren arteko harremana, proposizio baten eta bere erreferentearen arteko harremanarekin. Xabier Arregi

Erraz bururatzen da harreman hau ez dela berbera "gaua erortzear dago" motako **enuntziatu** batean eta "ondorio orok bere zergatia du" motako **enuntziatu** batean. Xabier Arregi

Hamaika bizipen daude nire **enuntziatuaren** atzean, hamaika bizipen eta bizipen horien inguruko hamaika gogoeta. Karlos Zabala

Enuntziatu bat beti izango da hizkuntzak eta zentzuak inondik ere agortu ezingo duten gertaera. Xabier Arregi

Aldagai askerik ez duen formulari ***enuntziatua*** edo *formula itxia* esaten zaio. Askoren artean

Enuntziatua esaldiarekin edo proposizioarekin aurrez aurre ipintzean, ez naiz saiatu osotasun galdu bat bilatzen, ezta berpizten ere hitzaren betetasun bizia, berbaren

aberastasuna, logosaren batasunaren sakona. Xabier Arregi

Gogoeta ez da oso egiazkoak izan daitezkeen **enuntziatuen** ikasketa hutsa. Xabier Amuriza

Arreta handiagoarekin jokatzen du bere azalpenetan, bere maisuaren **enuntziatuetan** alderdi etiko eta pastorala gehiago azpimarratuz espekulatibo eta filosofikoa baino. Joan Mari Lekuona

1980ko hamarkada hasieratik negoziazioa ardatza zen ENAMen jarreratan, baina **enuntziatu** bat besterik ez zen. Berria - Harian

Hortik "Ezer ezin da izan aldi berean guztiz ezbeltza eta beltza" **enuntziatua** lor dezakegu, eta horrek egia logikoaren ordezkapen-kasua dirudi. Askoren artean

Urrunago ere joan gaitezke: n. mailako ekuazio bat edo errefrakzio-legearen formula algebraikoak **enuntziatutzat** jo daitezke. Xabier Arregi

Hizkuntz ahalmena nahitaez mugatua denez eta **enuntziatuen** luzera mugatzen duen hizkuntzarik ez dagoenez, pentsatu beharra dago gramatikak nolabaiteko mekanismo errekurtsibo batzuk dituela. Itziar Laka

Zeinu-multzo honi dagokion existitzeko modu bereziari deituko zaio **enuntziatu**. Xabier Arregi

Azkenik, grafiko bat, hazkunde-kurba bat, adin-piramide bat, banaketa-hodei bat **enuntziatuak** dira. Xabier Arregi

Enuntziatuak, baita bera izen sintagmara murrizten bada ere ("itsasontzia!"), edo izen berezi batera ("Kepa!") murrizten bada ere, berak enuntziatzen duenarekiko duen harremana ez da izenak berak izendatzen duenarekiko edo esan nahi duenarekiko duen harreman bera. Xabier Arregi

Egungo matematikek ez dituzte metatzen euren **enuntziatuak** Euklidesen geometriaren eredu berari jarraituz. Xabier Arregi

Diskurtsoaren jarraitasun-ezaren eta **enuntziatuaren** singulartasunaren arazotik abiatuta (gai zentrala), periferian, multzokatze enigmatikoen forma batzuk aztertzen ahalegindu naiz. Xabier Arregi

XVII. mendean aldatu dena eta Historia natural osorako kontzeptuen agerpena eta errepikapena zuzenduko duena izango da **enuntziatuen** banaketa orokorra eta eurak multzo zehatzetan sailkatuak izatea. Xabier Arregi

Ahalegina egin behar da ohartarazten **enuntziatuen** osagai errepikariak nola ager daitezkeen berriro, nola banan daitezkeen, nola birmolda daitezkeen, nola handiago daitekeen euren hedadura edo mugatasuna. Xabier Arregi

Kontua da **enuntziatua** atzematea bere gertatzearen estutasunean eta singulartasunean. Xabier Arregi

Enuntziatuen arteko harremanak deskribatzen ahalegindu naiz. Xabier Arregi

Enuntziatuen multzokatze hauek guztiak, oraindik deskribatzeko daudenak, ez dira mundu ikuskera baten adierazpena, hitzen formarekin landutakoa. Xabier Arregi

Eskema erretoriko ezberdinak, **enuntziatuen** multzoak konbinatzea zilegitzen dutenak. Xabier Arregi

Eraketa diskurtsibo bat ezaugarritzeko nerabiltzan arauen lau multzoek ondo definitzen ote zituzten **enuntziatuen** multzoak. Xabier Arregi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez dago arazorik esateko esaldi berak, bi pertsona ezberdinek ahoskatuta eta egoera ezberdin samarretan, **enuntziatu** bakarra osatzen duela. Xabier Arregi

Itun konstituzionalaren atariko sarreran «ahoa betetzeko moduko **enuntziatu** handi eta ponpoxoak» daudela onartu arren, euskaltzaleek sakon irkurri dute araudi egitasmoa eta horrela egiaztatu ahal izan dute horiek guztiak ez direla gero «ondorio praktikoetara eramaten». Berria - Euskal Herria

Teoria, sistema formala da (partzialki) interpretatua, non bi kontzeptu-mota aurkitzen ditugun (behaketazkoak eta teorikoak) eta horiek modu egokian lotzen dituzten **enuntziatu** bereziak, egokitzapen-erregelak deituak. Askoren artean

Gauza jakina da "ez-esandakoa", "erreprimitutakoa", ez dela berbera -ez bere egituran ez bere ondorioan- **enuntziatu** matematiko batez edo **enuntziatu** ekonomiko batez diharduguneau, eta autobiografia batez edo amets baten kontaeraz diharduguneau. Xabier Arregi

Lege zientifikoa **enuntziatu** unibertsala izateaz gain -"zisne oro zuria da" formakoa-, zerbait gehiago bada, zertan datza "zerbait" hori? Askoren artean

Zer esan nahi du zerbait legea dela, eta ez bakarrik **enuntziatu** deskribatzailea, adibidez? Askoren artean

Laburbilduz, iruditzen zitzaidan medikuntza antolatzen zela **enuntziatu** deskriptibo batzuen modura. Xabier Arregi

Esaldi bat fidelki itzulita atzerriko hizkuntza batera: bi **enuntziatu** ezberdinak al dira ala bakarra da? Xabier Arregi

Harreman hauek esplizituak izan daitezke [...] edo inplizituak eta **enuntziatu** arruntetan bilduak. Xabier Arregi

Enuntziatu kuantitatiboak formulazio kualitatibo eta alderantziz itzultzeko moduak. Xabier Arregi

Eremu hau **enuntziatu** efektibo guztien multzoaz osatuta dago (ahozkoez nahiz idatzizkoez). Xabier Arregi

Hori lortzeko bidea gehienetan lege kausalena edo **enuntziatu** kausal unibertsalena baino gehiago **enuntziatu** kausal singularren azterketarena da. Askoren artean

Enuntziatu sakabanatu eta heterogeneo horien arteko koexistentzia da ezaugarritu eta bereizi beharko litzatekeena. Xabier Arregi

Hizkuntza batek, beti ere, ahalezko **enuntziatuentzat** sistema bat osatzen du. Xabier Arregi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zin-egiteak, erreguak, kontratuak, frogapenak, gehienetan zenbait formula ezberdin edo esaldi banandu eskatzen dute: zaila litzateke euretako bakoitzaren **enuntziatu**-estatusa auzitan jartzea aitzakia modura hartuz ekintza ilokutorio berberak zeharkatzen dituela denak. Xabier Arregi

Ondo egonkortutako **enuntziatu**-harreman jakin baten barruan esleitu ahal izango da esaldi batek bere zentzuarekin duen harremana. Xabier Arregi

Enuntziatu-funtzioaren hirugarren ezaugarria: bera ezin da gauzatu berari lotutako eremu bat gabe. Xabier Arregi

Hauek guztiak **enuntziatu**-sistemak dira (gertaerak, alde batetik, eta gauzak, bestetik) eta eurak*artxibo* deitzea proposatzen dut. Xabier Arregi

Han eta hemen proposizio-egitura bera, baina **enuntziatu**-karaktere arras ezberdinak. Xabier Arregi

Deskribapen kualitatiboak, kontaera biografikoak, kokapenak, zeinuen interpretazioa eta erkaketa, arrazoiketa analogikoa, dedukzioa, kalkulu estatistikoa, egiaztapen esperimentala, eta **enuntziatu** modu askoz ere gehiago, hori da aurki daitekeena, XIX. mendean, sendagileen diskurtsoan. Xabier Arregi

Egia da ezin dela sistema linguistiko bat finkatu [...] ez bada **enuntziatu**-corpus batetaz edo diskurtso-egiteen bilduma batetaz. Xabier Arregi

Gure ohiturei ezartzen zaizkien **enuntziatu**-familia handi hauei dagokienez -medikuntza, ekonomia, edo gramatika deritzegunak- nire buruari galdegin diot zeren gainean oinarri dezaketen euren batasuna. Xabier Arregi

Batasunik baldin badago, honen hastapena ez da izango **enuntziatu**-mota zehatz bat. Xabier Arregi

Aztertu beharrekoa **enuntziatu**-multzo batzuk direnean. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Era orokor batean esan daiteke hizkuntza osagaien sekuentzia-**enuntziatua** dela, bakarrik enuntziazio-arlo batean murgilduta badago eta bertan bera osagai berezi bezala agertzen bada. Xabier Arregi

Zer da legea? Erregulartasun-**enuntziatu** bat ala ezinbestez agintzen duena? Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina enuntziatu (4); **baina enuntziatu bat** (3); **beste enuntziatu** (9); **beste enuntziatu batzuk** (3); **bi enuntziatu** (4); **da enuntziatu** (9); **da enuntziatua** (5); **da enuntziatuaren** (6); **da enuntziatuen** (3); **dela enuntziatu** (3); **den enuntziatua** (3); **diren enuntziatuak** (6); **diren enuntziatuen** (3); **dituzten enuntziatu** (3); **du enuntziatu** (3); **du enuntziatuak** (3); **du enuntziatuen** (3); **duten enuntziatu** (3); **duten enuntziatuen** (3); **edo enuntziatu** (6); **enuntziatu bakarra** (4); **enuntziatu bat** (28); **enuntziatu batean** (5); **enuntziatu batek** (5); **enuntziatu baten** (6); **enuntziatu batzuk** (5); **enuntziatu bera** (8); **enuntziatu berri** (3); **enuntziatu guztiek** (4); **enuntziatu hau** (4); **enuntziatu horien** (4); **enuntziatu kausal** (3); **enuntziatu mota** (5); **enuntziatu moten** (3); **enuntziatu multzo** (19); **enuntziatu multzo bat** (8); **enuntziatua da** (5); **enuntziatua egon** (3); **enuntziatua egon dadin** (3); **enuntziatua ez** (9); **enuntziatua ez da** (7); **enuntziatuak berak** (4); **enuntziatuak dira** (4); **enuntziatuak diren** (3); **enuntziatuak diren neurrian** (3); **enuntziatuak eratzeko** (3); **enuntziatuak ez** (5); **enuntziatuaren subjektua** (8); **enuntziatuen artean** (3); **enuntziatuen arteko** (6); **enuntziatuen arteko koexistentzia** (3); **enuntziatuen azterketak** (3); **enuntziatuen deskribapena** (3); **enuntziatuen multzo** (5); **enuntziatuen multzo bat** (3); **enuntziatuen multzoak** (4); **enuntziatuen sail** (3); **enuntziatutzat jo** (3); **eta enuntziatu** (10); **eta enuntziatua** (3); **eta enuntziatuaren** (6); **eta enuntziatuen** (4); **ez da enuntziatu** (4); **ez da enuntziatuaren** (4); **moduko enuntziatu** (3); **motako enuntziatu** (3); **zenbait enuntziatu** (7)

---

enuntziatzaile *izond* enuntziatzen duena.

Funtzio **enuntziatzailea** ezaugarritzen duen materialtasun errepikagarri honek enuntziatua agerrarazten du objektu zehatz eta paradoxiko modura. Xabier Arregi

"Egile" hau ez da enuntziatuaren subjektu berbera; eta berak formulazioarekin duen ekoizpen-harremana ezin zaio gainjarri subjektu **enuntziatzaileari** eta berak enuntziatzen duena batzen duen harremanari. Xabier Arregi

Ikusi berria dugu subjektu **enuntziatzailearen** kokapena ez dela beti berbera, egiazko proposizio bat baieztatu behar denean. Xabier Arregi

Bada, hala ere, ezberdintasunik: lehen kasuan, enuntziatzen dena hizkuntzaren konbentzioa da, -subjektu **enuntziatzaileak** erabili behar duen hizkuntzarena, zeinaren baitan definitzen den: subjektu **enuntziatzailea** eta enuntziatua dena maila berekoak dira beraz (nahiz eta azterketa formal baterako honen moduko enuntziatu batek inplikatzen duen meta-hizkuntzari dagokion desberdintzea). Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
subjektu enuntziatzailearen (3)

---

enuntziazio 1 *iz* enuntziatzea; enuntziatzearen ondorioa.

Enuntziazioa errepikatzen ez den gertaera da; kokatutako eta datatutako berezitasun bat dauka eta hau ezin da murriztu. Xabier Arregi

Bi **enuntziazio** guztiz berberak izateak, zentzu berberean erabilitako hitz berberez eginak izateak, ez du baimentzen, jakina denez, eurak erabat identifikatzea. Xabier Arregi

Eraketa diskurtsibo batek ez du betetzen, orduan, ahalezkoa zaion bolumen osoa, bere objektuak, bere **enuntziazioak**, bere kontzeptuak eratzeko sistemak ireki diotena. Xabier Arregi

Subjektu bat eta bakar batek esaldi bera errepika dezake zenbait alditan; beste horrenbeste **enuntziazio** izango dira denboran barrena. Xabier Arregi

Egiturazko ezaugarrien **enuntziazioa** mugatu egin zen Tournefortengandik Linnaeusenganaino doan garaian. Xabier Arregi

Laburbilduz, **enuntziazioaren** modalitate ezberdinak ez dira lotzen subjektuaren batasunarekin. Taxonomia klasikoak edo aberastasunen azterketak, berez existitu izan diren moduan eta figura historikoak sortu dituzten neurrian, eurekin dakartzate objektuak, **enuntziazioak**, kontzeptuak eta aukeraketa teorikoak, sistema artikulatu eta banaezin batean. Xabier Arregi

Kontua da, haatik, eurei jarraitzea euren ametsean zehar, edo, are gehiago, ametsaren, ahanzturaren, galdutako jatorriaren gaiak batzea eta bilatzea zer existentzia moduk ezaugarritzen dituzten enuntziatuak, kontuan izan gabe euren **enuntziazioa** denboraren sendotasunean. Xabier Arregi

2 (izenondoekin)

Bi pertsonek gauza bera esan dezakete denbora berean; eurak bi direnez bi **enuntziazio** ezberdin izango dira. Xabier Arregi

Bere **enuntziazio** soilak jite zeharo erlijiosoko ideal batean pentsaraztera eraman gintzake, baina miragune bat besterik ez da. Piarres Xarriton

Enuntziazio deskriptiboa izango litzatekeela medikuntza-diskurtsoan agertzen diren formulazioetako bat, besterik ez. Xabier Arregi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enuntziazio -funtzioa -garbi utzita honela bera ez dela aldez aurreko osagaietan oinarrituriko eraikuntza hutsa eta soila- ezin da gauzatu egoera askean dagoen esaldi edo proposizio baten gainean. Xabier Arregi

Litekeena da, noski, harreman hauek guztiak aztertzea gai modura hartu gabe **enuntziazio** -arloa bera, hau da, **enuntziazio** -funtzioa gauzatzen den koexistentzia-eremua. Xabier Arregi

Esan daiteke, halaber, enuntziatuen deskribapenak eta **enuntziazio** -maila antolatzen den moduak eraketa diskurtsiboak banakotzera daramatela. Xabier Arregi

Enuntziazio -azterketa, beraz, azterketa historikoa da, edozein interpretaziotik at dirauena. Xabier Arregi

Enuntziazio -eremuak biltzen du oroimen-arloa deitu ahal izango genukeena. Xabier Arregi

Naissance de la clinique lanean ikerketaren muina zen mediku-diskurtsoaren **enuntziazio** -formen aldaketak XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran. Eraketa-lege berdinen bidez objektu berriak agertzen dira (banako-mota berriak, portaera-mota berriak patologia modura ezaugarritzen dira), **enuntziazio** -modu berriak lanean jartzen dira (oharketa kuantitatiboak eta kalkulu estatistikoak). Xabier Arregi

Enuntziazio -era batzuk baztertuak izaten dira (esaterako, zeinuen deszifratzea) beste batzuk inplikatuta daude (kode zehatz baten araberako deskribapena). Xabier Arregi

Ekonomia, medikuntza, gramatika, izaki bizidunen zientzia eta tankera horretako diskurtsoek bidea ematen dute kontzeptuen antolaera batzuk, objektuen multzokatze batzuk, **enuntziazio** -mota batzuk sortzeko, eta hauek gaiak edo teoriak eratzen dituzte euren koherentzia, zorroztasun eta egonkortasun mailaren arabera. Xabier Arregi

Bereizi behar da, beraz, hizkuntza analogiaren (edo itzulgarritasunaren), berberatasun logikoaren (edo baliokidetasunaren) eta **enuntziazio** -homogeneotasunaren artean. Xabier Arregi

Enuntziazio -erregulartasunen azterketa hau norabide askotan zabaltzen da, eta hau egunen batean, agian, arakatu beharko da. Xabier Arregi

Proposaturiko azterketan **enuntziazio** -modalitate ezberdinek eraman beharrean subjektu baten sintesira edo funtzio bateratzailera, subjektu horren sakabanaketa adierazten dute. Xabier Arregi

Enuntziazio -sailen ordenaketa ezberdinak. Xabier Arregi

Enuntziatu batez hitz egin ahal bada, izango da esaldi bat (proposizio bat) puntu jakin batean agertzen delako, kokapen jakin bat betetzen duelako, bera gainditzen duen **enuntziazio** -joko batean. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
enuntziazio arlo (4); **enuntziazio arlo batean** (3); **enuntziazio arloaren** (4); **enuntziazio erregulartasunen** (4); **enuntziazio funtzioa** (7); **enuntziazio maila** (4); **enuntziazio modalitate** (5); **eta enuntziazio** (7)

---

enura *iz* duda, zalantza.

Haren moral probisional edo "behin-behineko moralaren" bigarren arauak, ekintzaren orduan **enura** guztiak bazterrera uzteko eta determinatuki aritzeko agintzen du. Joxe Azurmendi

Enuraz eta otezka gelditu nintzen, elezahar batetik ateratakoa zirudien amets hartatik esnatu nintzenean. Anjel Lertxundi

Norak, aldiz, **enuraren** antzeko harridura sentitu batez begiratu zion emakumeari. Anjel Lertxundi

Almuedanoa minaretera igo eta bertatik sinestunak meskitan otoitz egitera joateko deitu zituela baizik ez du esaten, inguruabarrak azaldu gabe, goiz edo eguerdia ote zen, edo eguzkia etzaten ari ote zen, zeren, **enura** gabe, bere iritzian, gorabehera xehe horiek ez baitiote historiari eragiten. Jon Alonso

Enurarik gabe zetorren erasoa erantzuteko prest nengoenean, Estatu Nagusiko kapitain bat bion artean jarri, eta ahal izan zuen moduan, bereizi gintuen. Jon Alonso

---

enuresia *iz* gernu egite nahiaz kanpokoa.

Enuresia izan liteke arrazoia. Karlos Linazasoro

Enuresia, bada; horrek bultza, eraman, behartu omen ninduen lehorrean igeri egiten ikastera. Karlos Linazasoro

Estreina abenidetan, etxe-orratzetatik behera, ohean, sekula ez Udalaren aurrean buruz behera, **enuresia**, bizkarrez ere bai bai bai, autoen artean sigi-saga azkarrak, txof-txof joan-etorri txikiak, belaze fresko goxoetan beeee. Karlos Linazasoro

---

enuxant ik **enuxent**.

---

enuxent *izond/iz ipar* inuzentea, tolesgabea.

Ondorioz, Jean René Etxegarai lehen axuanta ere libroki mintzatu da, ibilpen planaren borondate on eta doi bat **enuxenta** azpimarratuz. Herria

Pariseko Unescotik ezagutzen nuen kalonje haietarik batek, Rikardo Arregi aurkeztu niolarik, sekulakoak bota zizkion, burutik behera, gure adiskide gaixo, **enuxent**, iñorant, mukizu, ausart, ezdeusari. Piarres Xarriton

Nork zakien duela zonbait ehun urte Oztibarre xokotik, Hoztako herritik eta Azmeko gaztelutik borrokatzera joan zirela Hego Euskal Herrirat, Amaiurrerat buru bero eta **enuxentak**, etsaia zafratu behar zutela: han galdu zuten nafartarrek azken gudukada. Herria

Nola hartzen ote dituzte Elizaren erran horiek? Sekulan obratuko ez den amets goxo bat bezala? Ilusione emaiteko pentsatuak diren ele legun eta **enuxent** batzu bezala? Herria

---

enuxentzia *iz ipar* inuzentzia, xalotasuna.

Hots, politika gaietan, gure inozentzia ala **enuxentzia** etikoa galdua genuen seminarista gutiz gehienek. Piarres Xarriton

---

enzefalopatia ik **entzefalopatia**.

---

enzerratu ik **entzerratu**.

---

enziklopedia ik **entziklopedia**.

---

enzima ik **entzima**.

---

enzyma ik **entzima**.

---

eoliko **1** *izond* haizeari dagokiona.

Energia **eolikoa** sortzen duten zutabeak "burdinazko zuhaitzekin" alderatzea oso da parekoa eta egokia gai honetan eta mendizale baten ahotan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Energia **eolikoari** buruzko eztabaida. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Burura datorkio zutabe **eolikoak** eta ingeniariak Don Quijote eta haize-errotekin konparatzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Energia geotermikoa, **eolikoa** edo biomasan oinarritutakoa, berriz, ez dira ingurumenarekiko kaltegarriak. Berria - Gaiak

Munduan sortzen den potentzia **eolikoaren** %2,5 Nafarroan ekoizten da. Berria - Euskal Herria

2 haizez dabilena.

Orain burrunbaka ari dira alanbre tenkatuak bailiran, edo, edertasuna eta hunkidurari begirunea erakustearren, esan dezagun harpa **eoliko** bihurtu direla, haizeak, ziklonikoa den arren, bibrarazten duen harpa **eolikoa**. Jon Alonso

Orienteko apoteosia, aizu: karilioi **eolikoak**, ispiluak, bionboak, portzelanak, buda zoriontsuak, koloretako arrainak... hitz batean, Txinako astea Corte Inglesen. Patxi Iturritegi

Kostuari begira, zera gogoratu behar da: lehen ordenagailua oso garestia izan zen, sakelako lehen telefonoa bezala, eta lehen generadore **eolikoa** bezala. Berria - Mundua

Mendizale asko etorri zaigu protestan, gainera, ez dituztelako nahi gure mendietan sorgailu **eolikoak** edo haize errotak, eta hori ere kontuan hartu behar dugu. Berria - Euskal Herria

50.000 turbina **eoliko** jarrita, 720.000 milioi kilowatt argindar sortzea legokeela dio Greenpeace erakundeak. Berria - Gaiak

Energia geotermikoa, **eolikoa** edo biomasan oinarritutakoa, berriz, ez dira ingurumenarekiko kaltegarriak. Berria - Gaiak

3 (izen gisa)

Eguzki indarraren, **eolikoaren** eta biomasaren kostuak ere asko gutxituko dira etorkizunean. Eremaiten zaitu **eolikoetarik** urbil, mahasti artean (Rioja eta Bierzo), ogi alorren sahetsean, larre eta jatsa den basamortuetan barna. Berria - Mundua

Beste zenbait gauzaren artean, erreduktoreak egiten ditue, barkuetan, **eolikoetan**, zementu-, azukre-, paper-fabrika, laminazino, zentral hidrauliko eta holakoetan behar diranak. Xabier Amuriza

Eolikoak jarriko dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 ***parke eoliko*** generadore eolikoak dauden eremua.

Parke eolikoak haizerrotez emendatzen ari dira Hegoalde guzian. Herria

Elgea mendikatean laster batean **parke eoliko** bat jarri behar dutela eta ingurumari hartara azken txangoa egitea erabaki du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Parke eolikoa eraikitzen ari den ingeniaria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Parke eolikoko aerosorgailuak bezperan Otsabiotik baino askoz handiago ikusi genituen. Juan Luis Zabala

Itsasoko **parke eolikoak** eraikitzeko finantziazioa lortzea ere nahitaezkoa dela dio. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

badaiako parke eolikoaren (4); **energia eoliko** (3); **energia eolikoa** (11); **energia eolikoa garatzeko** (3); **energia eolikoak** (4); **energia eolikoaren** (13); **hainbat parke eoliko** (3); **itsasoko energia eolikoa** (3); **itsasoko parke eolikoak** (4); **lehen parke eolikoa** (3); **max eolikoa** (3); **ordunteko parke eolikoa** (3); **ordunteko parke eolikoaren** (7); **parke eoliko** (15); **parke eoliko bat** (5); **parke eolikoa** (21); **parke eolikoak** (14); **parke eolikoaren** (15); **parke eolikoaren obrak** (3)

---

eolipila *iz* urez beteriko esfera, berotzean lurruna jaurtitzen duena erdialdean dituen bi hodi kurbatutatik, esfera biraraziz.

Bazen **eolipila** bat, *Sezesio* deritzon aro-estilokoa, Heronen iturri bat, eta aurrerabideak bazter utzitako tramankulu bitxi askotarikozko fauna oso bat. Juan Garzia

Hori egia dela ikusteko, brontzezko **eolipilak** erabiltzen dira, asmakizun artifiziozko horiek erabiliz azaleratzen baitira jainkoen zeruko lege ezkutukoak. Santiago Iruretagoiena

Eolipila horiek brontzezkoak eta hutsak izaten dira eta zulo txiki bat izaten dute. Santiago Iruretagoiena

---

eon *iz* izaki jainkotiarra; Lurraren denbora geologikoa neurtzeko unitatea.

[...] ez da potentzia eta ez da argia; ez da bizi eta ez da bizia ere; ez da substantzia, ez **eona**, ez denbora; ez da bere buruaren ukimen ukigarri [...]. Joan Mari Lekuona

---

eozeno *iz* hirugarren aroko periodo antzinakoena.

Adituen esanetan, Paleozeno-**Eozeno** garaian duela 55 milioi urte uraren tenperatura 20 gradu ingurukoa zen. Berria - Gaiak

Paleozeno-**Eozeno** garaiko tenperatura altuaren ondorioz, lurreko eta itsasoko karbono kopuruak gora egin zuen. Berria - Gaiak

---

epai[1] **1** *iz* epaile edo epaimahai batek adieraziriko erabakia.

Erabakia dut dagoeneko hori egin duenarentzat **epaia**. Elizen arteko biblia

Ja bost **epai** ditugu, eta, segur aski gehiago egongo dira. Berria - Gaiak

Astebete baino lehen, etxean neukan **epaia**: Nire damuaren zintzotasuna eta lapurretaren arina kontuan hartuta, deuseztatuta uzten zuen epaileak nire kontrako auzia. Joxerra Garzia

Auzia, **epaiaren** zain geratu zen. Berria - Kultura

Hemeretzi urte pasatxo dira Brouard hil zutela, eta herenegun atera zen **epaia**: 48 orrialdeko dokumentua, jakingarria oso. Joxerra Garzia

Epaia ekainaren 30ean jakinaraziko dute, eta sarituek azaroaren 30erako prest izan beharko dute ikuskizun osoa. Berria - Kultura

Epaia argudiatzeko, Ramos epaileak esaten du Basabek jarrera pasiborik ez zuela hartu; zehazten du ondo zekiela zer egiten ari zen, epaileak zer gerta ziezaiokeen ohartarazi zuelako. Berria - Harian

Epaia aho batekoa izan zen: heriotza. Iban Zaldua

Epaia berresten bada, ordainketa konpentsatzen saiatuko da Athletic Zubiaurrerekin. Berria - Kirola

Paroten **epaia** errekurrituko dute, «Konstituzioa urratzen duelako». Berria - Euskal Herria

Epaia aurrekari itxaropentsua izan daiteke une honetan ebaztear dauden beste hogei salaketa aintzat hartuta. Berria - Mundua

Bere **epaiak** apelaezinak ziren. Fernando Rey

Borroka ez dute oraindik amaitu, patenteetako bati eusten baitio Myriad Genomics enpresak, baina **epaiak** aldeko izan dituzte gaurdaino. Berria - Gaiak

Epaiak ez zuen, ordea, berehalako ondoriorik izan. Berria - Harian

Lehenbizi **epaia**, gero auzibidea. Oskar Arana

Gai horretaz hilabeteak dira hitz egiten ari dela, eta uste dut badela Udineko auzitegiaren **epai** bat ere. Josu Zabaleta

Zuzena zara egin diguzun guztian, zuzenak zure jokabide eta egintzak, bidezkoak zure **epaiak**. Elizen arteko biblia

Egiaren arragoa gaizto hau antzinako legeria basatiaren monumentu bizia da, suaren eta ur-irakinaren frogei eta armen zori ezustekoari Jainkoaren **epai** deitzen zitzaion garaikoa. Juan Martin Elexpuru

Urriaren 26an, hiru egun eta hiru gau iraun zuen eztabaida baten buruan, sutan hiltzeko **epaia** eman zioten. Juan Garzia

Epaiketan parte hartutako epaile guztiek bertan egon behar zuten **epaia** ematean, bereari eusteko eta faltsutzat jotzen zituenari oïl esan ahal izateko. Iñaki Iñurrieta

Epaiketan **epaia** ematen zuen magistratua. Patxi Ezkiaga

Besterik gabe, Auzitegi Gorenak 1997ko azaroaren 6an emandako **epaia** bete zedin agindu omen zuen. Ramon Saizarbitoria

Arabako Foru Aldundiak dagoeneko adierazi du **epaia** betetzeko «biderik egokiena» bilatuko duela, bi enpresen mesedetan. Berria - Ekonomia

Epaiak ez du, itxura batean, ondorio praktiko handirik izango. Berria - Ekonomia

Josafatek Jerusalemen zenbait lebitar, apaiz eta israeldar familiaburu izendatu zituen, Jaunaren izenean **epaiak** eman eta Jerusalemgo bizilagunen arteko auziak erabaki zitzaten. Elizen arteko biblia

Jainkoa zerutar izakien batzarrean jaiki da, herri-agintarien aurka **epaia** emateko. Elizen arteko biblia

-Beste aukera bat **epaia** gaur bertan ematea litzateke. Patxi Zubizarreta

Eta zer diote publiko egin diren **epai** horiek? Berria - Gaiak

Epaiaren argudioak. Berria - Euskal Herria

Ez dago **epaiaren** aurka jotzerik? Oskar Arana

Nork aurka egingo zure **epaiari**? Elizen arteko biblia

Ez da bidezko Jainko ahalguztidunaren legeen bidez gizakiei ezartzen zaien **epaiari** aurre egitea. Askoren artean

Dagoeneko bost **epaik** arrazoia eman diote, eta beste hiru atzera bota dituzte auzitegiek. Berria - Ekonomia

Epaiari helegitea aurkeztuko diola iragarri zuen ELAk. Berria - Ekonomia

Gainera zetorkion Jainkoaren **epaia**, harrokeriaz esana baitzuen: "Jerusalemera heltzean, juduen hilobi bihurtuko dut hiria". Elizen arteko biblia

Hondamendi bihurtuko dut Patros, su emango Tanis hiriari eta Tebasen aurkako **epaia** beteko. Elizen arteko biblia

Kanadako Auzitegi Gorenaren **epaiak** indar gabe utzi du, hala, 2002. urtean beste auzitegi batek erabakitakoa. Berria - Gaiak

Epaiak delitua preskribituta zegoelako absolbitu zuen, baina fiskala ez dago ados horrekin. Berria - Euskal Herria

Aurreko urteko lehiaketaren **epaia** zeharo injustua izan ei zen, lehen saria eskuratu zuena Marisol izan, Udaleko interbentorearen emaztea. Josu Landa

Epaia arrunt politikoa da, paperaren gainean argumentazioa huts-hutsean juridikoa agertzen bada ere. Berria - Euskal Herria

Neu ere zure kontra nator, Jerusalem; zeuregan betearaziko dut **epaia**, nazioen aurrean. Elizen arteko biblia

Epaietan dudan zorroztasunaz ohartuko dira eta agintariek ere miretsiko naute. Elizen arteko biblia

Baina ez zion ihes egin Jainkoaren **epaiari**. Askoren artean

Arantxa Arruti errugabe atera zen **epaian**, baina beste kondena bat zeukan, sei urtekoa, TOPekoa. Jokin Urain

Epaiarekin ados ez, eta beste askoren ahots, odolak burua hartuta sumindu zitzaion Eleuterio Tapia Joxe Mari Iriondori. Iñigo Aranbarri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez du juzgurik egiten, ez du **epai** moralik ematen. Berria - Kultura

Horregatik, gure **epai** moralak ezin ditugu bereizketa horretan oinarritu. Askoren artean

Epai zintzoak, bestalde, denboraren hiru gezien eraginez ahal bezain libre behar du izan: egungo moda eta joerez libre, iraganetiko eragin eta aurreiritziez, etorkizunerako asmo eta gurariez. Berria - Kultura

Ez zitzaizkion oinazeak inola ere joaten, etorria baitzuen gainera Jainkoaren **epai** zuzena. Elizen arteko biblia

Soinburuan kolpetxoak eman zizkidan eskuin eskuaren ahurraz, eta honako **epai** harrigarri hau jaulki zuen: [...]. Oskar Arana

Ruth Ellisi emandako **epai** gogor horrek heriotza-zigorrari buruzko eztabaida larria sortu zuen Bretainia Handian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zeure bihotz damugabearen gogorkeriaz zigorra handitzen ari zara zeuretzat zigor-egunerako, Jainkoaren **epai** zorrotza agertuko den egunerako. Elizen arteko biblia

Guraso bat galeretara zigortzen denean **epai** bidegabe batez. Juan Martin Elexpuru

Feudoko gizonei apelazioa jartze hau, **epai** faltsua egin zutela-eta, jaunari berari ez egiteko bide bat zen. Iñaki Iñurrieta

Krimenagatik edo **epai** izunagatik bahiak onartzen zirenean, ez zegoen bakerik egiterik jaunaren baimenik gabe. Iñaki Iñurrieta

Apelatzen zuenak **epaia** okerra zela frogatzen ez bazuen, hirurogei liberako isuna ordaintzen zion jaunari. Iñaki Iñurrieta

Epai latzak ematen dituzu ene aurka, gaztaroko erruak egotziz. Elizen arteko biblia

Epai zuzengabeak eman dituzu, errugabeak kondenatuz eta errudunak askatuz. Elizen arteko biblia

Kontrako **epaia** jaso zuen atzo Ingalaterrako eta Galesko Auzitegiaren partetik Susan Axonek. Berria - Gaiak

Eta lurretik hartua izan zena lurrera itzul zedin, madarikapenezko **epaia** ezarri zion. Askoren artean

Ezen bazirudien prest zegoela gizon eta emakumeen aurka behin betiko **epaia** laster emateko eta horiek mundutik garbitzeko, zuzentzen ez baziren. Askoren artean

Zeren eta errudun edo errugabe jotzen duen **epai** behin betikoak ekarriko baitu inpunitatearen lilura kentzea, lilura horrek dakarren kaltea handiagoa izaten delarik delituaren ankerkeriaren arabera. Juan Martin Elexpuru

Epaia -heriotzazko **epai** beldurgarria-, belarrietara heldu zitzaizkidan hitzetan azkena izan zen. Koro Navarro

Paulok zuzentasuna, nor bere buruaren nagusi izatea eta geroko **epaia** aipatu zizkionean, Felix larritu egin zen eta esan zion: [...]. Elizen arteko biblia

Zeren errukirik izan ez duenak errukirik gabeko **epaia** izango baitu.

Auzitegi Konstituzionalak **epai** bakarrean berretsi ditu Auzitegi Gorenaren bi **epaiak**. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gutun haietan maitaleari erakutsitako pasioa eta senarrari emandako pozoiaz esaten zena **epai**-gelan irakurri zen. Jendetzak eta jendetzak **Epai**-zelaian, gainean baita Jaunaren eguna, **Epai**-zelaian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Inoiz edo behin **epai**-makila makurtuko bahu, errukiaren astunez dadila, ez eskupekoaren astunez. Patxi Ezkiaga

Gu gaitzesten gintuen **epai**-agiria suntsitu egin du eta gurutzean josiz deuseztatu. Elizen arteko biblia

Giza ulermenaren berezko mirabekeriak **epai**-ahalmena eman dionez, [...]. Xabier Olarra

Ea onartzen zituen nire liburuak, inplizituki nahiz esplizituki, ematen zituen **epai**-iritziak. Juan Garzia

Zulo batean bilduko ditu preso, eta giltzapean gordeko luzaro, **epai**-egunera arte. Elizen arteko biblia

Legeak aplikatzeko ezarrita dagoen **epai** botereak zuzendua behar du izan, aplikazio horretan, erregela batzuen arabera. Andres Urrutia

Harremana, alde batetik, **epai**-galdeketak, polizia-txostenek, ikerketak eta argibide juridikorako aparatu osoak osatzen duten iragazkiaren eta, bestetik, mediku-galdeketek, azterketa klinikoek, aurrekarien ikerketek eta bibliografia-erreferentziek osatzen duten iragazkiaren artean. Xabier Arregi

Jakin ere, badakigu badirela berez azter daitezkeen harremanak sendi burgesaren eta **epai**-instantzien eta **epai**-kategorien funtzionamenduaren artean. Xabier Arregi

Harremana, alde batetik, **epai**-galdeketak, polizia-txostenek, ikerketak eta argibide juridikorako aparatu osoak osatzen duten iragazkiaren eta, bestetik, mediku-galdeketek, azterketa klinikoek, aurrekarien ikerketek eta bibliografia-erreferentziek osatzen duten iragazkiaren artean. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bai, etsia nengoen heriotza-**epaia** gainean nuela. Elizen arteko biblia

Kilpatrick-ek, azken biltzarraren buru gisa, traidore baten heriotza-**epaia** sinatu zuela, geroztik norbaitek izena ezabatu badu ere. Juan Garzia

Prest neukan **epaia**; herio **epaia** zen. Matías Múgica

Autoa irakurtzea aski da zigor **epaiak** oinarririk ez duela jabetzeko. Berria - Euskal Herria

Nik irtenaraziko zaituztet hiritik eta atzerritarren esku utziko; zuen aurkako zigor-**epaia** beteko dut. Elizen arteko biblia

Kondenazio-**epaia** zeureganatu duzu. Elizen arteko biblia

Gehiegikeriazko iritzi-**epaia**?! Jenaro Garate

Legez kanporatze **epaia** «berme guztiekin» eman zela eta eskubiderik ez dela urratu argudiatu du. Berria - Euskal Herria

5 irud/hed

Kanten **epaia** hau da: froga mota biak egokiak dira. Xabier Kintana

Gertakaria, bada, hoztasun gehiagoz gogoratzea erabaki nuen, distantziaren zuhurtasunarekin, eta jarduera haren ondorioz ohartu nintzen urrunegi joan nintzela nire **epaietan**. Karlos Linazasoro

Konturatu nintzen Lariboisièreko une hura aurretik ere bizi izan nuela 1963an N. sendagilearen **epaiaren** zain egon nintzenean, orain bezain izuturik eta sinesgaitz. Joseba Urteaga

Begi-bistakoa zen gaixoa kezkatuta ateratzen zela kontsultatik doktorearen **epai** hura entzuten zuen bakoitzean: [...]. Imanol Zurutuza

Analisiaren emaitzak esku artean, **epaia** botako dio doktoreak beste behin ere. Imanol Zurutuza

Itsasoaren **epaia** egiptoarren kontra eta israeldarren alde. Elizen arteko biblia

Suaren **epaia** eta zeruko ogia. Elizen arteko biblia

Mataderiko hil-**epaia** onartu duen aberearen antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

6 epaiketa.

Epairik gabe erbesteratzen zituzten. Koro Navarro

Epaia, baina, etenda dago orain. Berria - Gaiak

7 *epai-mahai* ik **epaimahai**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzitegiak epai (3); **auzitegiaren epai** (3); **baina epai** (3); **bere epai** (3); **beste epai** (6); **da epai** (7); **den epai** (3); **dira epai** (4); **du epai** (6); **duen epai** (3); **edota epai** (3); **epai bat** (18); **epai bat kaleratu** (3); **epai batek** (6); **epai batekin** (3); **epai baten** (9); **epai baten bitartez** (3); **epai dadin** (3); **epai dezaten** (5); **epai ditzaten** (5); **epai egingo** (3); **epai egingo ditu** (3); **epai egunean** (4); **epai erabaki** (3); **epai erabakia** (3); **epai erabakiaren** (3); **epai faltsuagatik** (3); **epai gelatik** (3); **epai hori** (11); **epai horiek** (5); **epai horrek** (9); **epai horren** (9); **epai hura** (4); **epai irmoa** (3); **epai lezake** (3); **epai mahai** (5); **epai mahaia** (4); **epai mahaiak** (14); **epai mahaian** (3); **epai mahaiaren** (9); **epai mahaiaren goresmenak** (3); **epai mahaikoek** (7); **epai mahaikoen** (3); **epai mahainaren** (5); **epai moral** (4); **epai zelaian** (4); **epai zezan** (4); **epai zezaten** (4); **epai zorrotza** (4); **epai zuzena** (5); **epai zuzenak** (4); **eta epai** (32); **eta epai mahaiaren** (3); **jainkoaren epai** (8); **kaleratutako epai** (3); **lehiaketako epai** (3); **zen epai** (3); **zuen epai** (3)

aldeko epaia (15); **aldeko epaia eman** (4); **atzo epaia** (3); **atzoko epaia** (3); **aurka epaia** (3); **aurkako epaia** (26); **aurkako epaia eman** (6); **auziaren epaia** (7); **auziari buruzko epaia** (3); **auzitegi gorenak epaia** (5); **auzitegi gorenaren epaia** (6); **auzitegi nagusiaren epaia** (4); **auzitegiaren epaia** (8); **azken epaia** (12); **baina epaia** (5); **baten epaia** (4); **behin betiko epaia** (9); **bere epaia** (9); **betiko epaia** (9); **bitartekaritza epaia** (3); **buruzko epaia** (12); **da epaia** (10); **du bere epaia** (3); **du epaia** (15); **duen epaia** (10); **dut epaia** (6); **dute epaia** (8); **eman zuen epaia** (7); **emandako epaia** (6)

epaia aztertzen (3); **epaia baliogabetu** (3); **epaia bere** (4); **epaia berretsi** (7); **epaia bertan** (3); **epaia bete** (9); **epaia beteko** (8); **epaia beteko dut** (3); **epaia betetzeko** (10); **epaia da** (10); **epaia eman** (52); **epaia eman arte** (7); **epaia eman aurretik** (6); **epaia eman du** (6); **epaia eman zion** (3); **epaia eman zuen** (8); **epaia eman zuten** (6); **epaia eman zutenean** (3); **epaia emango** (9); **epaia ematea** (4); **epaia ematean** (3); **epaia emateko** (11); **epaia ematen** (6); **epaia ematerakoan** (3); **epaia entzun** (4); **epaia ere** (3); **epaia eta** (9); **epaia ez** (11); **epaia ez da** (4); **epaia ezarri** (3); **epaia irakurri** (7); **epaia izan** (4); **epaia izango** (3); **epaia jakin** (5); **epaia jaso** (7); **epaia jasotzen** (5); **epaia kaleratu** (6); **epaia noiz** (3); **epaia osorik** (4); **epaia sinatu** (4); **epaia zen** (3); **epaia zuzena** (3)

epailearen epaia (3); **epaimahaiak epaia** (3); **eta epaia** (24); **eta epaia eman** (5); **gabeko epaia** (3); **gorenak epaia** (5); **gorenaren epaia** (8); **haien epaia** (3); **haren epaia** (4); **heriotza epaia** (6); **honek epaia** (4); **honek epaia eman** (3); **inguruko epaia** (4); **jainkoaren epaia** (7); **jaunaren epaia** (4); **kaleratutako epaia** (4); **konstituzionalaren epaia** (3); **kontrako epaia** (14); **lehen epaia** (4); **nagusiaren epaia** (4); **nire epaia** (3); **plazaratutako epaia** (3); **urrezko epaia** (3); **zen epaia** (5); **zeure epaia** (3); **zigor epaia** (17); **zigor epaia beteko** (3); **zion epaia** (4); **zuen epaia** (19); **zure aurkako epaia** (3); **zure epaia** (4); **zuten epaia** (4)

aurkako epaiak (4); **auzia epaiaren** (7); **auzia epaiaren zain** (7); **auzitegi gorenaren epaiak** (3); **auzitegi nagusiaren epaiak** (3); **auzitegiaren epaiak** (4); **auzitegiaren epaiaren** (4); **dio epaiak** (16); **du epaiak** (15); **du gorenaren epaiak** (3); **duen epaiaren** (5); **emandako epaiak** (7); **emandako epaiaren** (3); **epaiak argi** (3); **epaiak dio** (8); **epaiak dioenez** (10); **epaiak eman** (3); **epaiak eta** (4); **epaiak ez** (13); **epaiak jasotzen** (4); **epaiak jasotzen duenez** (3); **epaiak ongi** (3); **epaiaren arabera** (26); **epaiaren aurka** (6); **epaiaren beldurrik** (3); **epaiaren beldurrik gabe** (3); **epaiaren berri** (14); **epaiaren berri jakin** (5); **epaiaren kontra** (5); **epaiaren ondorioz** (3); **epaiaren zain** (30); **epaiaren zain gelditu** (4); **epaiaren zain geratu** (6); **epaiari begira** (4); **epaiari buruz** (5); **epaiari helegitea** (10); **epaiari helegitea aurkezteko** (3); **epaiari helegitea jarriko** (3); **epairik eman** (4); **epairik ez** (6); **epairik gabe** (3); **eta epaiak** (7); **eta epaiaren** (6); **eta epairik** (4); **gorenaren epaiak** (7); **haren epaiak** (4); **jainkoaren epaiaren** (5); **jainkoaren epaiaren beldurrik** (3); **jainkoaren epaiari** (4); **kaleratutako epaiak** (5); **konstituzionalaren epaiak** (4); **nagusiaren epaiak** (3); **zituen epaiak** (4); **zuen epaiak** (8); **zuen epaiaren** (5)

---

epai[2] 1 *iz* ebakitzea.

Halaxe deitzen baitzaio, maiatz-belar lehenbiziko korte edo **epai** gizen urtsu heze horri. Pello Zabala

Artoak irabazian bai, eta belarra lehenengo **epaian** ganbara edo bordara altxatuta nahi zuten. Pello Zabala

Irudi zinematografikoa "automugimendua" izateko gai delako konstatazio horretatik berriro abiatuta proposatu zuen Gilles Deleuzek mugimendu-irudia, bere iritzian planoan gauzatzen dena (planoa "iraupenaren **epai** mugikor" bezala harturik), zinemaren bi modalitate nagusietako bat bezala hartzea. Josu Zabaleta

2 (aizkolariak)

Etzanda jarritako 45 ontzako enborrari hamar **epai** egin beharko dizkio bikote bakoitzak, ohi bezala. Berria - Kirola

Epaietan ez zela «nahi bezain ongi» aritu aitortu zuen Arrospidek, «itxi» egin zituelako, eta ezpalik gabe geratu zen. Berria - Kirola

Arian-arian, **epaietan** asmatzen ere ikasten ari naiz, eta [aizkoran] Larrionen aurka asmatu dudala uste dut. Berria - Kirola

Azurmendi kolpean aritu zen, baina azken **epaietan** denbora galdu zuela adierazi zuen. Berria - Kirola

Urduri hasi nintzen Iriarteren kontra, baina **epaietan** asmatu nuen eta txukun bukatu nuen. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Epai -belar deitzen zaie santio-belar edo milazulo, ebakiak garbitzeko eta sendatzeko erremediotan erabiltzen diren hyperycon eta ebaki-belar horiei. Pello Zabala

Horregatik **epai** -aro deitzen zaio belar lanetako sasoi honi, lehenago garia ebakitzen zenekoari bezalaxe: epaiaro ziren biak hala biak. Pello Zabala

· Hiru bertso horiek gure misteriozko izaeraren altzoan -airean jasotako eraikuntza ikusezin batean- soilik dagoen unibertso bateko legeen araberakoak dira, eta Balbearen sega-**epaiak** gizakion bihotzean utzi ohi duen urradura iradokitzen dute. Anjel Lertxundi

4 ebakidura.

Halaxe deitzen baitzaio, maiatz-belar lehenbiziko korte edo **epai** gizen urtsu heze horri. Pello Zabala

Perspektibazko koadratze baten modura, espazioan egiten duen **epai** batekin lotzeko gai garelako baizik ez da gertatzen hori. Josu Zabaleta

Irudi zinematografikoa "automugimendua" izateko gai delako konstatazio horretatik berriro abiatuta proposatu zuen Gilles Deleuzek mugimendu-irudia, bere iritzian planoan gauzatzen dena (planoa "iraupenaren **epai** mugikor" bezala harturik), zinemaren bi modalitate nagusietako bat bezala hartzea. Josu Zabaleta

5 sekzioa.

Ikuspegi horretatik begiratuta, aipatu beharra dago urrezko **epaia** deitu izan denaz idatzi den literatura oparoa behintzat; "lehenak bigarrenari buruz bigarrenak bien baturari buruz duen proportzio bera duen erlazioari" deitzen zaio urrezko **epaia** (matematika bidez adierazita: a/b=b/ (a b); proportzio horrek, aise egiazta daitekeen bezala, 1,618-ko erlazio bat ematen du aldeen arterako, "urrezko zenbakia" deitua). Josu Zabaleta

6 ***epai aro*** *(orobat* ***epaiaro****)*

Horregatik **epai-aro** deitzen zaio belar lanetako sasoi honi, lehenago garia ebakitzen zenekoari bezalaxe: **epaiaro** ziren biak hala biak. Pello Zabala

7 *epai gela* ik **epaigela**.

---

epaiaro ik **epai**[1] **6**.

---

epaibide *iz* epaiketaren bidea.

Epaibide guztiak justiziaren independentzia eta zuzentasuna egoki bermatu ahal izateko, eta epaitzen denaren larritasuna ete hala badagokio zigorraren gogortasuna erabakitzeko, ezinbestekoak dira aztarnetan, prozeduretan eta bermeetan oinarritzea. Berria - Euskal Herria

Egotzi egin baititu Frantziako Tourreko antolakuntzak lasterketatik Italian irekitako **epaibide** batzuetan dopin delitu batean auzipetuta daudelako bi txirrindulariak. Berria - Kirola

Errukia, beraz, noiz edo noiz soberanoarentzat tronuko beteharren bertute osagarria izan ohi dena, baztertu egin beharko litzateke zigor biguneko eta **epaibide** ondo arautu eta garbiko legeria perfektu batean. Juan Martin Elexpuru

Umezurtzei kendu eta beste gizon bati bere lagun hurkoaren ondasunak ematean datzan **epaibide** hau ezezaguna zen errepublika erromatarreko garai guztietan. Juan Martin Elexpuru

Gaia **epaibideetan** dago, eta erabaki zain daude bi aldeak. Berria - Kultura

---

epaiezin *izond* ezin epaituzkoa.

Liburu perfektua egin nahi zuen: *auctoritas* hutsa, **epaiezina**. Iñaki Iñurrieta

---

epaigailu *iz* epaitzeko gailua.

Ipini epaiketarako bularrekoaren barruan "Urim" eta "Tumim" **epaigailuak**; Aaronek bular gainean eramango ditu, Jaunaren aurrera aurkeztean. Elizen arteko biblia

Jantzi sakratua ere eman zion, urrez, purpura more eta gorriz egina, apain bordaturiko lana; bai eta epaiketarako bularrekoa ere, "Urim" eta "Tumim" **epaigailuekin**. Elizen arteko biblia

Lebirentzat esan zuen: "Tumim eta Urim zure **epaigailuak** Lebiri eman zizkioten, Jauna, leial izan zitzaizunari, alegia. Herriak Jauna tentatu zuen Masan, aurpegi eman Meribako iturrian". Elizen arteko biblia

Janari sakratuetatik jatea debekatu egin zien gobernariak, harik eta apaiz batek "Urim eta Tumim" **epaigailuen** bidez haien egoera argitu arte.

---

epaigela *(ETCn **64** agerraldi; orobat **epai gela** ETCn **50** agerraldi)* *iz* epaiketen gela.

Hiriak adina jurisprudentzia dago, eta parlamentu berean ere, **epaigela** bateko eta besteko irizpideak desberdinak izan ohi dira. Juan Martin Elexpuru

Gutun haietan maitaleari erakutsitako pasioa eta senarrari emandako pozoiaz esaten zena **epai-gelan** irakurri zen, eta hitz haien oihartzuna egunkarietara eta aldizkarietara zabaldu zen, pospoloak piztutako gasolina-arrastoaren antzera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Epaigelan leku mugatua zenez, sostengu taldeko batzuk kanpoan gelditu ziren. Berria - Harian

Haren deklarazioa **epaigelatik** bertatik jarraitu zuten, eta amaitu zuenean, berriz eskaini zioten txalo zaparrada. abokatuari ez zutela defentsarik nahi eta **epai gelatik** irteteko eskatu zioten bi epaituek. Berria - Euskal Herria

Epaigelatik kanpo zegoela ere, berdin jarraitu zuen alargun hark. Hasier Etxeberria

---

epaikari *iz* epailea.

Magistratu, **epaikari** eta idazkarien izendapena Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege Organikoetan aurreikusten den bezalaxe, egingo da. Berria - Euskal Herria

---

epaiketa *(**2.611** agerraldi, **98** liburu eta **919** artikulutan; ETCn **33.080** agerraldi)* **1** *iz* epaitzea; epaitzearen ondorioa.

Gainerakoa -kartzela, **epaiketa**, kondena- ez zait batere axola orain. Agurtzane Juanena

Utzidazu gogorarazten: hau ez da **epaiketa** baizik eta ikerketa. Oskar Arana

Zer auzitegitan eginen da **epaiketa**? Fernando Rey

Osaba argalari **epaiketa** egin zioten nazioari lapurreta egiteagatik. Pello Lizarralde

Tristan erromes mozorroturik itzuli zen, Isoldaren kontra **epaiketa** egiten ari zirela. Juan Kruz Igerabide

Agintari ohiari ezarri zioten abokatu Steven Kayk **epaiketa** eten eta lekukoak bilatu ahal izateko denbora eskatu zuen. Berria - Mundua

Agintariek delinkuentziarekin lotu nahi dute Djindjicen hilketaren **epaiketa**, krimen politikoa izan zenean. Berria - Mundua

-Mallonaren **epaiketa** uztailaren 21ean izan zen. Edorta Jimenez

'18/98 auziaren' **epaiketa**. Berria - Euskal Herria

2005eko otsailaren aurrenetan hasita egin zuten Madrilgo Auzitegi Nazionalean berrogeita bi gazteren aurkako **epaiketa**. Jokin Urain

Horra zergatik zuzen den **epaiketa** hau egin dezan Erromako Aulki Sainduak. Piarres Xarriton

Epaiketa egite hutsa oso larria da, areago egungo egoera politikoa kontuan hartuta. Berria - Harian

Herritar bati subiranoaren, hau da, Estatuaren aurkako **epaiketa** hasteko baimena ematen zaionean. Esteban Antxustegi

Otxoa anaiak harrapatu zituen auto gidariaren aurkako **epaiketa** hasi da. Berria - Kirola

Epaiketa amaitu eta hona itzultzeko bezperan, sarreretako modulura eraman gintuzten Jon eta biok. Jokin Urain

Azken hori **epaiketa** baten zain dago, nandrolonarekin positibo eman duelako. Berria - Kirola

Pepe Uruñuelaren abokatu Nines Lopezek **epaiketa** bertan behera uzteko eskaerarekin bat egin arren, ez zuen plantoan parte hartu. Berria - Harian

Epaiketa berean beste 41 pertsona ere zigortu zituzten. Berria - Gaiak

Epaiketa guztiak berdinak dira, dena fartsa hutsa da! Koldo Izagirre

"Urduri nago, ez naiz inoiz **epaiketa** batean izan", esan zion amak aitari. Koldo Izagirre

Epaiketa atalez atal egingo ote den, Ordura arte erabateko seriotasunean eramandako **epaiketa** oilategi harro bihurtu zuten. Berria - Harian

Horko **epaiketa**-fartsekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Epaile batek dio Pinochet «gai» dela **epaiketa** bati aurre egiteko. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Epaiketa ospetsu hartan, SS-Ahnenerbeko buru izandako Sievers doktorea heriotza zigorrera kondenatu zuten. Alberto Ladron Arana

Itxurak eta zeremoniak beharrezkoak dira justiziaren administrazioan, ez delako ezer utzi behar administratzailearen iritzira, **epaiketa** egonkor eta arautuaren irudia eman behar zaiolako herriari. Juan Martin Elexpuru

Errukia legegilearen bertutea dela esaten da, eta ez legeen gauzatzailearena; legerian egin behar duela distira, eta ez **epaiketa** partikularretan. Juan Martin Elexpuru

Gizon libreek debekatuta zeukaten bizimodu txarreko emakumeekin ezkontzea, antzerkian ibilitakoekin edo **epaiketa** publikoan kondenatutakoekin. Iñaki Iñurrieta

Itsas armadan nengoela, ia-ia **epaiketa** militarra egin zidaten itsas mapa sorta baten izen-etiketak nahasteagatik. Oskar Arana

59 euskal herritarrek akusazio eta zigor eskaera larriei egin beharko diete aurre, Madrilgo Casa de Campon, **epaiketa** handietarako propio prestatutako egoitzan. Berria - Harian

Urkatu aurretik **epaiketa** justu bat egingo diogu akusatuari. Harkaitz Cano

Turkiako Helegite Auzitegiak atzo aurreko **epaiketa** «bidegabekotzat» jo eta **epaiketa** berriro egitea ebatzi zuen. Berria - Mundua

Heriotza-zigorra merezi zuen delitu baten susmagarri zen norbait atxitu eta kondenatzen zutenean, ez zeukan **epaiketa** faltsuagatik apelatzerik; izan ere, bestela apelatu egingo baitzukeen beti, dela bizia luzatzeko, dela bakeak egiteko. Iñaki Iñurrieta

Epaiketa izunagatiko apelazioa. Iñaki Iñurrieta

Nola izan zitekeen zuzenbidezko **epaiketa** akusatua bertan izan gabe eta bere kontrako froga nagusiak damutuen salaketetan oinarrituta egonda? Ibon Uribarri

Asteon egin da ahozko **epaiketa**, eta, horrenbestez, epaiaren zain dira Arabako agintariak. Berria - Ekonomia

Parmalat auzia dela-eta, hasi da 32 lagunen aurkako **epaiketa**. Berria - Ekonomia

Gauza bakarra egin dezaket -esan zuen Holbrookek-, aurretiazko **epaiketa** ahalik eta lasterren egin dadin ahalegindu. Fernando Rey

Soinu dantza arrabots eta giro ederrean ereman dute Zanpantzar karrikaz karrika, azkenean erre dute ezker pareta sahetsean, **epaiketa** luze baten ondotik. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kasu hortan Europa mailean finkatu **epaiketa** lege berriak ez direla bali. Herria

Kondenatuen arteko gehienen kasuan gertatzen dela haien alde egin behar duen abokatua ez dutela berek aukeratzen, baizik **epaiketa** sistemak zuzenean. Pello Salaburu

Batzuetan ondorioak zuzenak dira: osasun gastuak, polizia gastuak, **epaiketa** gastuak, gizarte zerbitzuek eragindakoak, eta abar. Pello Salaburu

Bere kontrako **epaiketa** prozesua gelditzeko eskatu dio IBM enpresak Suitzako Auzitegi Gorenari. Berria - Gaiak

Epaiketa mahaia taula batzuen gainean dago, aski gora, eta mahaiaren gibelean jarririk daude zuzendari nausia, epaile nausi bezala, eta beste bi xefa, zuzendariaren eskuin eta ezkerrean. Filipe Bidart

Komandantzia militarreko patioraino sartzen ziren furgoiak, eta handik **epaiketa** gelara. Jokin Urain

Orduantxe ireki ziren **epaiketa** aretoko ateak. Koldo Izagirre

Gazterik hiltzen badira, berriz, ez dute itxaropenik izango, ez eta inolako pozik ere **epaiketa**-egunean. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sasi-**epaiketa** lehendabizi, zeinaren ondorioz gehienak heriotzara kondenatu zituzten. Ramon Saizarbitoria

Gerra-**epaiketa** osoak ordubete baino gutxiago iraun zian, Tommo. Mirentxu Larrañaga

Gerra-**epaiketa** laburrak izan ziren, salatuek ez zuten izan maiz nork ordezkatuko ere. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abokatuak epaiketa (5); **ahozko epaiketa** (22); **argitzeko epaiketa** (5); **atzoko epaiketa** (5); **aurkako epaiketa** (110); **aurkako epaiketa atzo** (4); **aurkako epaiketa hasi** (19); **auziaren epaiketa** (39); **auziari dagokion epaiketa** (6); **auziko epaiketa** (8); **azken epaiketa** (5); **baina epaiketa** (8); **baten epaiketa** (5); **baten kontrako epaiketa** (5); **bere aurkako epaiketa** (5); **bere kontrako epaiketa** (4); **beste epaiketa** (23); **beste epaiketa bat** (14); **bidezko epaiketa** (4); **bigarren epaiketa** (6); **burgosko epaiketa** (7); **buruzko epaiketa** (4); **da epaiketa** (30); **dagokion epaiketa** (7); **dela epaiketa** (7); **den epaiketa** (12); **diren epaiketa** (6); **du epaiketa** (18); **dugu epaiketa** (4); **dute epaiketa** (15); **edo epaiketa** (5); **egin zen epaiketa** (6); **egin zuten epaiketa** (7); **egitekoa zen epaiketa** (5)

epaiketa abiatu (7); **epaiketa amaitu** (5); **epaiketa atzeratu** (11); **epaiketa atzeratu egin** (5); **epaiketa atzeratzeko** (5); **epaiketa atzo** (11); **epaiketa atzo hasi** (6); **epaiketa aurretik** (4); **epaiketa azkarra** (6); **epaiketa azkarra egin** (5); **epaiketa bat** (43); **epaiketa bat egin** (7); **epaiketa bat jasateko** (5); **epaiketa batean** (31); **epaiketa baten** (12); **epaiketa baten zain** (4); **epaiketa bati** (8); **epaiketa bati aurre** (5); **epaiketa bera** (11); **epaiketa berean** (4); **epaiketa berriro** (5); **epaiketa berriz** (15); **epaiketa berriz egin** (4); **epaiketa berriz egiteko** (4); **epaiketa bertan** (42); **epaiketa bertan behera** (42); **epaiketa bi** (7); **epaiketa bihar** (4); **epaiketa buenos** (4); **epaiketa da** (8); **epaiketa datorren** (8); **epaiketa dela** (5); **epaiketa egin** (55); **epaiketa egin bitartean** (5); **epaiketa egin edo** (4); **epaiketa egin eta** (4); **epaiketa egin zuten** (6); **epaiketa egingo** (9); **epaiketa egitea** (9); **epaiketa egiteak** (4); **epaiketa egiteko** (17); **epaiketa egiten** (9); **epaiketa egiten ari** (6); **epaiketa eguna** (5); **epaiketa egunean** (7); **epaiketa errepikatzeko** (4); **epaiketa espainiako** (5); **epaiketa espainiako auzitegi** (4); **epaiketa eta** (21); **epaiketa eten** (8); **epaiketa etetea** (5); **epaiketa euskaraz** (5); **epaiketa ez** (15); **epaiketa ez zela** (5); **epaiketa ezin** (4); **epaiketa fartsa** (5); **epaiketa gaur** (7); **epaiketa gelan** (6); **epaiketa gelara** (5); **epaiketa guztiak** (8); **epaiketa hasi** (58); **epaiketa hasi aurretik** (9); **epaiketa hasi da** (13); **epaiketa hasi zen** (15); **epaiketa hasi zenetik** (5); **epaiketa hasteko** (11); **epaiketa hau** (20); **epaiketa honek** (8); **epaiketa honen** (7); **epaiketa hura** (6); **epaiketa irabazi** (7); **epaiketa izan** (13); **epaiketa izan zuten** (4); **epaiketa izango** (12); **epaiketa justu** (8); **epaiketa justu bat** (5); **epaiketa justua** (10); **epaiketa laster** (4); **epaiketa militar** (4); **epaiketa militarra** (9); **epaiketa noiz** (7); **epaiketa noiz egingo** (4); **epaiketa politiko** (5); **epaiketa politikoa** (8); **epaiketa politikoak** (12); **epaiketa saioa** (4); **epaiketa salatzeko** (8); **epaiketa zuzena** (9); **epaiketa zuzena ez** (4)

estradizio epaiketa (4); **eta epaiketa** (52); **eta epaiketa bertan** (5); **falta epaiketa** (4); **gerra epaiketa** (5); **hainbat epaiketa** (5); **hasi zen epaiketa** (6); **hasiko da epaiketa** (5); **hilketaren epaiketa** (7); **inguruko epaiketa** (7); **kontrako epaiketa** (81); **kontrako epaiketa egin** (4); **kontrako epaiketa hasi** (7); **lagunen aurkako epaiketa** (4); **lehen epaiketa** (8); **lehenengo epaiketa** (4); **ohiaren epaiketa** (4); **solidarioen kontrako epaiketa** (4); **zen epaiketa** (26); **ziren epaiketa** (4); **zuen epaiketa** (24); **zuten epaiketa** (13)

aurkako epaiketak (7); **dira epaiketak** (4); **diren epaiketak** (4); **du epaiketak** (6); **epaiketak aurrera** (14); **epaiketak aurrera egiteko** (4); **epaiketak ere** (4); **epaiketak eta** (6); **epaiketak ez** (9); **epaiketak ez dira** (4); **epaiketak hasi** (4); **epaiketak iraun** (5); **epaiketako lehen** (4); **eta epaiketak** (12); **kontrako epaiketak** (11); **zuen epaiketak** (4)

ahozko epaiketan (5); **ahozko epaiketarako** (5); **atzoko epaiketan** (7); **aurkako epaiketan** (18); **auziaren epaiketan** (11); **auziari dagokion epaiketan** (5); **azken epaiketan**

(4); **bere epaiketan** (4); **burgosko epaiketan** (4); **da epaiketan** (5); **dagokion epaiketan** (5); **den epaiketan** (7); **dira epaiketara** (4); **du epaiketan** (7); **egindako epaiketan** (11); **egingo den epaiketan** (4); **epaiketan bere** (5); **epaiketan bertan** (4); **epaiketan deklaratu** (6); **epaiketan egon** (6); **epaiketan ere** (8); **epaiketan ez** (4); **epaiketan izan** (4); **epaiketan parte** (13); **epaiketan parte hartu** (4); **epaiketan zehar** (6); **epaiketara agertu** (6); **epaiketara joan** (5); **epaiketarekin aurrera** (6); **epaiketarekin aurrera egitea** (5); **eta epaiketan** (11); **kontrako epaiketan** (8); **lehen epaiketan** (6); **zen epaiketan** (6); **zen epaiketara** (6); **zuen epaiketan** (9); **zuten epaiketan** (5)

ahozko epaiketaren (4); **atzoko epaiketaren** (4); **aurkako epaiketaren** (5); **epaiketaren amaieran** (4); **epaiketaren aurretik** (4); **epaiketaren bigarren** (4); **epaiketaren hasiera** (5); **epaiketaren hasieran** (5); **epaiketaren lehen** (14); **epaiketaren lehen egunean** (4); **epaiketaren ondoren** (6); **epaiketaren zain** (44); **epaiketaren zain dago** (9); **epaiketari aurre** (4); **epaiketarik egin** (14); **epaiketarik egin gabe** (8); **epaiketarik ez** (14); **epaiketarik gabe** (38); **epaiketarik gabe preso** (4); **epaiketarik gabeko** (12); **epaiketarik izan** (5); **epaiketen aurka** (4); **epaiketen gainetik** (5); **eta epaiketaren** (15); **eta epaiketaren zain** (6); **eta epaiketarik** (12); **eta epaiketarik gabe** (7); **kontrako epaiketaren** (7)

---

epailari *iz* epailea.

Lau **epailari** egon ohi ziren bertan; ibai, zubi eta jaun-herriko jabeak ezarritako legez ematen zituzten beren erabakiak. Patxi Ezkiaga

Aitor-zin hartaz konturatu ziren **epailariak** eta honela zioten: "Gizaseme honi bidea zabaltzen badiogu, gezurra litzateke bere aitor-zina; eta, legez, heriotza merezi du; eta urkatzen badugu, berak urkabe hartan hilko zela esan zuenez, egiazkoa litzake bere aitor-zina, eta, beraz, aske behar luke." Hau da bada gobernadore jaunari galdetzen zaiona, zer erabaki eman behar dioten gizaseme hari **epailari** haiek; oraindik ere zalantzan daude eta hauek, asma ezinik. Patxi Ezkiaga

---

epaile[1] *(**7.182** agerraldi, **163** liburu eta **2.784** artikulutan; ETCn **84.989** agerraldi)* **1** *iz* zernahi motatako gorabehera edo auzietan, eta eskuarki lege auzietan, epaia emateko esku duen pertsona. ik **juje; epailari; ebazle; epaimahaiko**.

1993an hasi zen Euskaldunon Egunkaria-n lanean, Juan del Olmo **epaileak** egunkaria itxi zuen arte. Edurne Elizondo

Gaia **epaileen** esku dago, irakasleak erasoa salatu baitu. Berria - Euskal Herria

Madrilgo auzitegiko Garzon **epailearen** aginduz. Iñigo Aranbarri

Epaimahaiko bost **epaileren** aldeko botoarekin eta kontrako birekin hartu dute erabakia. Berria - Gaiak

Txilen bizi da Menem, eta **epailea** arbuiatu du, «alderdikeriaz jokatzea» leporatuta. Berria - Mundua

Epailearen epaiak ez duela froga ez argibiderik ematen klarki ageri da. Patziku Perurena

Epaileen independentzia murrizteko, eta instantzia politikoak, hau da, Justizia Ministerioaren boterea handitzeko helburua dute Berlusconi egin nahi dituen erreformek, magistratuek salatu dutenez. Berria - Mundua

Legeak argiak eta zehatzak diren lekuan, **epailearen** lanbidea gertaerak ziurtatzea da soil-soilik. Juan Martin Elexpuru

1985ean hainbat **epaile** erosten saiatu izana leporatzen diote. Berria - Mundua

1974an Mario Sossi **epailea** bahitu eta herri epaiketa egin zioten. Berria - Mundua

Guardia Zibila da auziaren eragile nagusia: «**Epailearen** laguntzaile izatetik prozesuaren motor nagusi izatera pasatzen da, eta **epaileak** ekimen eta erabaki horiei itxura juridikoa besterik ez die ematen». Berria - Harian

Epaileak probidentzia batean adierazi duenez, Ugalderen aurka hartutako neurriak «soilik» behin-behinekoak izan ziren, eta ez zuten bere pertsonaren kontra jo. Berria - Harian

Mediku eta erizain talde handi bati hartu dio deklarazioa Hedley Londresko Auzitegi Goreneko 47. salako **epaileak**. Berria - Gaiak

Fernandez kartzelan sartzeko agindu zuen **epaileak** igandean. Berria - Euskal Herria

Abokatuak aitortu zuen oso zaila izango dela Zigor Aretoak Juan del Olmo **epailearen** instrukzio osoa bertan behera uztea. Berria - Harian

Gaia **epaileen** esku dago, irakasleak erasoa salatu baitu. Berria - Euskal Herria

New York Times egunkariak «harrituriik» hartu du Hogan **epailearen** ebazpena. Berria - Gaiak

Gero eta gutiago aipatzen da Juppé jaunaren kontra Nanterre-ko **epaileek** hartu duten erabakia. Herria

Jesus Marcos Calahorra zuzendariak «enpresako kontseiluaren aginduak jarraitu besterik» ez zuela egin ebatzi du **epaileak**. Berria - Ekonomia

Epaile izango dira auzietan, eta nire legeen arabera egingo dute epaiketa. Elizen arteko biblia

Izenda itzazu lege-zaintzaile eta **epaileak**, zure legea ezagutzen dutenak. Elizen arteko biblia

Creteileko Goi Instantziako Auzitegiko **epaile** batek prozedura bat ireki dio. Berria - Euskal Herria

Galdetu nion, geroxeago, **epaileak** zergatik ez zuen prozedura arintzen. Fernando Rey

Orain, **epaileak** deklaratzera deitu zaituenean, ez dakizu nondik hasi. Berria - Kultura

Epaileak ontzat jo du neurria eta langileek helegitea jarri dute. Berria - Ekonomia

Otamendiren helegitea atzera bota du **epaileak**. Berria - Euskal Herria

Epaileak gaur goizean berean sinatu ziok baldintzarik gabeko askatasun agiria. Aingeru Epaltza

Gonzalezen esanetan, **epaileak** kaleratzeak baliogabetu ditu azken egunetan. Berria - Ekonomia

Epaileak «baliogabetzat» jo zuen gaixotasun agiriekin zeuden bi langile kaleratzea. Berria - Ekonomia

Donostiako hiritarrak auzitegira jo zuen babes eske, eta **epaileak** arrazoia eman zion. Berria - Ekonomia

Espainiako Auzitegi Nazionaleko **epaileak** artxibatu egin du Soziedad Alkoholika musika taldearen aurka Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT) jarritako kereila. Berria - Kultura

Epaileak bere informea egin behar du. Bernardo Atxaga

Mona Matthews, 26 urteko estra, Emil Boggess **epaileak** atzo hirurogei eguneko kartzela-zigorra jarri ziona epaimahaiari desmen egiteagatik, libre utzi dute gaur goizaldean. Fernando Rey

Biba zuek, Nobel sariko **epaileek** holako emaztea saristaturik. Herria

Epaileak ehun zastada hartzera kondenatu zuen. Patxi Zubizarreta

du epaitegira (3); **epaitegiko buruak** (4); **epaitegiko epaileak** (13); **epaitegiko idazkaria** (3); **epaitegiko langile** (3); **epaitegiko partaide** (4); **epaitegiko partaide izateko** (4); **epaitegira eraman** (12); **epaitegira eraman zituzten** (3); **epaitegira eraman zuten** (3); **epaitegira eramango** (4); **epaitegira jo** (11); **epaitegira jo zuten** (3); **epaitegira joan** (9); **epaitegira joan behar** (5); **epaitegira joateko** (3); **epaitegira joko** (7); **epaitegira joko du** (3); **epaitegira sinatzera** (3); **epaitegitik atera** (6); **eskubideen epaitegira** (3); **eta epaitegira** (4); **gernikako epaitegira** (3); **getxoko epaitegira** (3); **giza eskubideen epaitegira** (3); **goragoko jaunaren epaitegira** (3); **instrukzio epaitegiko** (20); **instrukzio epaitegiko epaileak** (8); **jaunaren epaitegira** (3); **lan epaitegiko** (5); **lan epaitegiko partaide** (4); **zen epaitegira** (3)

---

epaitondo *iz* enborra moztu ondoren lurrari atxikia gelditzen den zuhaitz zatia. ik **motzondo**.

Epaitondo bateraino hurbildu zen astiro. Koldo Izagirre

---

epaitu[1], epai(tu), epaitzen **1** du *ad* epaia eman, epaile gisa erabaki. ik **jujatu**.

1972ko urtarrilaren 8an **epaitu** zuten Madrilen, eta lau urteko presoaldi txikia eman zioten legez kontra elkartzeagatik. Rafa Egiguren

Bere bi seme-alabak hiltzeagatik **epaitu** eta zigortu zuten. Berria - Gaiak

Spies, Parsons, Fielden, Sachwab, Neebe, Linng, Fischer eta Engel langileen lider anarkistei egotzi zieten gertatutakoaren errua, eta atxilotu, **epaitu** eta zigortu egin zituzten. Berria - Ekonomia

Holako kasuetan beti egiten ohi dena: **epaitu**, eta nazioaren legeak ez konplitzeagatik kondenatu. Elena Touyarou

Han **epaituak** izanen zarete zuen saldukeriagatik eta, kasik segur, gillotinatik iraganak. Elena Touyarou

Bost euskaldun eta bederatzi bretoin ziren hor **epaituak**. Herria

Neba, Manuel Valdes Larrañaga, [...] Bilboko kartzelan du, Falange de Vizcaya delakoaren buru bera delako akusaziopean **epaiturik** eta 20 urteko zigorra betetzera kondenaturik. Edorta Jimenez

Hau da bere etengabeko aholkua: ez inor **epaitu**, ez gaizki esan, etab. Askoren artean

Nire 2/33 Taldekoek **epaitzen** dituzte epaileak. Josu Zabaleta

Hemezortzi urte baditu, **epaitu** dezakete. Oskar Arana

Ez nazazu **epaitu**, arren, baizik har nazazu zenbaitetan gainezka egiten duen norbait bezala. Josu Zabaleta

Bere koinata preso igorri omen zuela, iraultzaren kontrakoa zela leporatuz, eta **epaitu** gogo omen zuela. Elena Touyarou

Terroristak **epaitu** baino bi aste lehenago, auzitegi militar berean baina beste epaile batzuekin, Ivan Janson nekazaria **epaitu** eta urkaturik hiltzera kondenatu zuten. Jose Morales

Berri agentzien arabera, Frantziak Albisu **epaitzeari** uko egin eta Espainian epaitzea da Garzonen helburua. Berria - Euskal Herria

Gerra kontseilu sumarisimoan **epaitzen** ninduten kriminal zaildua nintzen. Koldo Izagirre

Harroegia zara, anai Maseo, Jainkoaren eginak **epaitzen** baitituzu, eta infernua merezi duzu zure zentzugabeko harrokeriagatik. Askoren artean

1693. urteko maiatzerako epaiak amaitu ziren eta **epaitzeko** geratzen ziren 9 sorginak aske utzi zituzten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kontua da **epaitu** eta kondenatu egin zutela, eta bi heriotza-zigor eman zizkiotela: bat pozoitze ahaleginagatik, lepoa moztera, bestea sodomiagatik, sutan erretzera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Edozein apezpiku txipiren edozein artzapezpiku edo patriarka handiren menpeko baten auzietan, noiz ere kargutik kentzea merezi duen falta larri batez baita **epaitzen**, apostoluenganik Apostoluen Aulki Sainduari uzten ohi zaio erabakia. Piarres Xarriton

Azkenik, Zaindarien Kapitainak Beregond eraman zuen Erregearen aurrera, **epai** zezan. Agustin Otsoa

Nik ez bainekien auzi hura nondik nora eraman, Jerusalemera joan nahi al zuen galdetu nion, han **epai** zezaten. Elizen arteko biblia

Ez dezazuela, beraz, epea baino lehen **epai**. Elizen arteko biblia

Jatorrizkoarekiko baliokidetasunaz, berriz, **epai** bezate jakintsu astitsuek: ni, irakurleak gogatzearekin konformatzen naiz. Juan Garzia

Gogoan izan naturak zure herrikideak zoriontsu egiteko, zaintzeko, laguntzeko, maitatzeko jarri zaituela eginkizun horretan, eta ez **epaitzeko**, zigortzeko eta, are gutxiago, kartzelaratzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Besteak **epaitzeko** ahalmena hartu dutenek, berriz, erabil bezate errukiz, beraiek Jaunarengandik errukia izan nahi duten bezalaxe. Askoren artean

Ordena publikoko ekintzetan, magistratuak zigortzen du, ez legeak; delituak **epaitzerakoan**, aldiz, legeak zigortzen du, ez magistratuak. Iñaki Iñurrieta

Epaitegian dei bat daukazulako zain, eta, beste kausa bat bitarteko, auzipeko ihesian **epaituta** zaudelako eta bi urteko zigorra eman dizutelako. Rafa Egiguren

-Aita, utzi hildakoak Jainkoak **epai** ditzan. Juan Garzia

Israelen banaketa hesia **epaitzearen** aurka agertu da Washington. Berria - Mundua

2 irud/hed

Ez da pertsona zehatz batzuen aurkako epaiketa; herri baten dinamika **epaitu** nahi dute. Berria - Harian

Mutil gazteari begiradatik eta ahotsetik baino ez ziezaiokeen **epai** haserrea. Mirentxu Larrañaga

Hiru partida jarraian jokatzerik ez dut izan, eta ezin da nire jokoa **epaitu**. Berria - Kirola

Asmoak **epaitzen** ari zara! Baserriak hiriko bizimodua **epai** badezake, hiriak ere badu baserria **epaitzea**. Koldo Biguri

Erlijioak, ordea, intentzioak ere **epaitu** nahi lituzke. Patziku Perurena

Itoitz egin dutenak **epaituko** ote ditu historiak? Edurne Elizondo

-Horixe nahi nuke nik, kausak **epaitzea**, eta ez ondorioak. Koldo Izagirre

Eta guk, nola **epaituko** genuke biografia ezabatzeko jokabide hori? Juan Garzia

Pisatzen eta zatitzen, froga egiaztatuetan oinarriturik neurtzen eta **epaitzen**, eta zergatikoei erantzuten ahal guztiz saiatzen den kimikari baten lana. Juan Garzia

Gizabanakoari dagokiola erregeren aginduen bidezkotasuna edo bidegabekeria **epaitzea**.Ez dagokit niri **epaitzea** zaila ala erraza den deabruaren tentaldiei buru egitea. Esteban Antxustegi

Inork ezin du **epaitu** nahi gabeko haurdunaldia eteteko erabakia hartzen duen emakumea, ezin baikara haren larruan sartu. Luis Elberdin

-Janzkeratik **epaitzen** duzu beti jendea? -galdetu zuen. Oskar Arana

Orain, zuri dagokizu, irakurle, erabaki egokia ote den **epaitzea**. Antton Olano

-Hik ez daukak konponbiderik - **epaitu** zuen Imanolek, serio, baina barrea atera zitzaion azkenerako. Fernando Morillo

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Inoren jokabide moralak moralki **epaitzeko**. Juan Garzia

Gaizki **epaitu** zaituztela uste duzu? Berria - Kirola

Arima kaskar oilo-bustiak oker bezain injustuki **epaitu** ohi ditu handiaren ekintzak. Joxe Azurmendi

Esan egia lagun hurkoari, **epaitu** zuzenbidez zeuen auzitegietan. Elizen arteko biblia

Epai ezazue zuzentasunez, izan on eta errukitsu. Elizen arteko biblia

Atahualpa inka Jende Zuzenbidearen arabera baizik ezin zen **epaitu**: haiek, ordea, lege politikoen eta zibilen bidez **epaitu** zuten. Iñaki Iñurrieta

Ziliziako gobernadoreak salaminatarren biletean adierazten ziren abenikoen arabera **epaituko** zuela. Iñaki Iñurrieta

Hildakoak liburuetan idatzirik zegoenaren arabera **epaitu** zituzten, bakoitza bere egintzen arabera. Elizen arteko biblia

Pareen bidez **epaitzeko** ohitura gero eta gutxiago erabili zen; bailien bidez **epaitzekoa** hedatu egin zen. Iñaki Iñurrieta

Horregatik, zuek, hitz zakarrez eta keinu haserrekorrez **epaitzen** duzuenok, saia zaitezte barruko bizitza duen jende finago hori ongi tratatzen. Joan Mari Lekuona

Guk ez genituzke besteren akatsak ezpataren gogorkeriaz **epaitu** beharko, geure akatsekin hain barkabera jokatzen dugunean. Jon Alonso

4 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Preso **epaituek** soilik zuten bigarren aukera hori. Jokin Urain

16 ETAkide **epaituen** gorabeherak kronika ezin biziagoan dena zehazki azalduz. Berria - Harian

Arbitro ebatzien bidez eta gauza **epaituaren** indarraz. Andres Urrutia

Ba al da kontraste ankerragorik **epaituaren** larritasunak eta epailearen patxadak egiten dutena baino? Juan Martin Elexpuru

Biziki kezkatzekoa da **epaituek** defentsarako dituzten eskubideak urratzen ikustea. Berria - Euskal Herria

Epaituaren esanetan, baina, ez zuen sekula ETArekin harremanik izan. Berria - Euskal Herria

Lehen bahiketa Eugen Beihl kontsularena izan zen, Burgosko epaiketa garaian, 1970ean; **epaituen** aldeko nazioarteko presioa egiteko eduki zuten egun batzuetan Zuberoako Montorin. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemendik eta abendua arte epaiketak **epaituei** eragingo dien gastu ekonomikoa 540.000 eurokoa izango dela kalkulatu dute. Berria - Harian

15 **epaituak** euskaraz mintzatu dira. Herria

Ziur nago **epaituak** garaile irtengo direna. Berria - Harian

Nik lan egiten dudan Epaitegi Federalak oso ongi funtzionatzen du: **epaituen** %95a sartzen dute kartzelara. Harkaitz Cano

Epaituari eskatzen zaizkion zinegiteetan kontraesana sortzen da legeen eta berezko sentimenduen artean. Juan Martin Elexpuru

Sinesgarritasuna, beraz, gutxitu egin behar da pertsona baten eta **epaituaren** arteko gorroto, adiskidetasun, edo harreman estuen arabera. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabera epaitu (5); **atzo epaitu** (5); **atzo epaitu zituzten** (3); **auzian epaitu** (3); **baina epaitu** (3); **bat epaitu** (10); **bat epaitu nahi** (3); **bat epaitu zuten** (3); **batera epaitu** (3); **beragatik epaitu** (3); **berriz epaitu** (3); **delitu beragatik epaitu** (3); **demo epaitu** (4); **du epaitu** (3); **egotzita epaitu** (5); **epaitu ahal** (6); **epaitu ahal izateko** (5); **epaitu arte** (5); **epaitu aurretik** (3); **epaitu behar** (50); **epaitu behar dira** (3); **epaitu behar dituztela** (3); **epaitu behar dute** (5); **epaitu behar zituzten** (5); **epaitu beharko** (11); **epaitu beharra** (5); **epaitu dituzte** (14); **epaitu dituztela** (3); **epaitu dituzten** (7); **epaitu du** (3); **epaitu duen** (3); **epaitu dute** (15); **epaitu duten** (3); **epaitu edo** (5); **epaitu egin** (9); **epaitu egingo** (10); **epaitu egiten** (3); **epaitu ere** (4); **epaitu eta** (49); **epaitu eta zigortu** (11); **epaitu ez** (4); **epaitu gabe** (26); **epaitu gabe egon** (3); **epaitu gaituzte** (3); **epaitu nahi** (26); **epaitu nahi ditu** (3); **epaitu nahi dute** (8); **epaitu zituen** (10); **epaitu zituen atzo** (4); **epaitu zituzten** (36); **epaitu zituzten atzo** (5); **epaitu zuen** (18); **epaitu zuten** (46); **epaitu zuten atzo** (3); **epaitu zutenetik** (3); **ere epaitu** (7); **eta epaitu** (15); **eta epaitu behar** (5); **ez epaitu** (9); **ez zuten epaitu** (3); **gabe epaitu** (4); **gazte epaitu** (6); **haiek epaitu** (3); **han epaitu** (3); **handi bat epaitu** (3); **hau epaitu** (3); **in absentia epaitu** (6); **inor epaitu** (4); **izanagatik epaitu** (4); **izanagatik epaitu zuten** (3); **izateagatik epaitu** (3); **lagun epaitu** (5); **leporatuta epaitu** (4); **nola epaitu** (5); **oraindik epaitu** (4); **zela epaitu** (3); **zuten epaitu** (3)

dela epaitua (3); **epaitua izan** (31); **epaitua izan da** (5); **epaitua izatea** (6); **epaitua izateko** (12); **epaituak eta** (6); **epaituak izan** (14); **epaituak izango** (5); **epaituak izango direla** (3); **epaituak izateko** (6); **epaituak izaten** (5); **epaituak izaten ari** (5); **epaituen artean** (3); **eta epaituak** (8); **eta epaituak izango** (3); **eta epaituaren** (3); **pinochet epaitua** (3); **pinochet epaitua izateko** (3)

agintari ohia epaituko (4); **arabera epaituko** (16); **arabera epaitutako** (3); **asko epaituko** (3); **asteartean epaituko** (3); **astelehenean epaituko** (3); **auzitegian epaituko** (3); **bakarrik epaituko** (5); **bakarrik epaituko dute** (4); **bat epaituko** (7); **bat epaituko dute** (6); **batek epaituko** (3); **berriz epaituko** (4); **da epaituko** (3); **dituzte epaituko** (3); **epaituko da** (3); **epaituko ditu** (19); **epaituko dituen** (4); **epaituko dituzte** (62); **epaituko dituzte gaur** (4); **epaituko dituztela** (11); **epaituko dituzten** (19); **epaituko dituzten gazteen** (3); **epaituko dituztenak** (3); **epaituko du** (15); **epaituko duen** (9); **epaituko dut** (3); **epaituko dute** (69); **epaituko dute gaur** (7); **epaituko dute jose** (3); **epaituko dute otegi** (3); **epaituko dutela** (10); **epaituko dutela esan** (3); **epaituko duten** (9); **epaituko zaitut** (3); **epaituko zaituzte** (4); **epaituko zaituztet** (3); **epaitutako beste** (4); **epaitutako euskal** (4); **eta epaituko** (7); **ez dituzte epaituko** (3); **gabe epaituko** (3); **gaur epaituko** (3); **gazte epaituko** (5); **gazte epaituko dituzte** (5); **gizon bat epaituko** (3); **jainkoak epaituko** (5); **jainkoak epaituko ditu** (3); **jokabidearen arabera epaituko** (4); **kide epaituko** (3); **kide epaituko dituzte** (3); **kodearen arabera epaitutako** (3); **lagun epaituko** (9); **lagun epaituko dituzte** (7); **laster epaituko** (3); **mundua epaituko** (3); **noiz epaituko** (3); **ohia epaituko** (4); **pertsona epaituko** (3); **zuzenbidez epaituko** (3)

arabera epaitzea (3); **arabera epaitzeko** (3); **atzo epaitzekoak** (3); **atzo epaitzekoak ziren** (3); **auzia epaitzeko** (10); **auzia epaitzeko eskumena** (3); **auzia epaitzeko eskumenik** (5); **bat epaitzeko** (3); **bera epaitzeko** (5); **epaitzea da** (6); **epaitzea erabaki** (7); **epaitzea erabaki zuten** (3); **epaitzea eta** (5); **epaitzea ez** (4); **epaitzeko ahalmena** (5); **epaitzeko ardura** (3); **epaitzeko asmoa** (3); **epaitzeko eskatu** (7); **epaitzeko eskubidea** (9); **epaitzeko eskubiderik** (6); **epaitzeko eskumena** (9); **epaitzeko eskumenik** (9); **epaitzeko eskumenik ez** (6); **epaitzeko eta** (5); **epaitzeko orduan** (4); **epaitzekoak ziren** (4); **erantzuleak epaitzeko** (3); **eta epaitzea** (3); **eta epaitzeko** (13); **ez epaitzea** (6); **ez epaitzea erabaki** (3); **ez epaitzeko** (6); **gerra krimenak epaitzeko** (3); **horiek epaitzeko** (3); **hura epaitzea** (3); **kasua epaitzeko** (4); **krimenak epaitzeko** (3); **lana epaitzeko** (4); **otano auzia epaitzeko** (3); **pinochet epaitzeko** (4)

arabera epaitzen (17); **ari dira epaitzen** (5); **ari ziren epaitzen** (3); **auzia epaitzen** (8); **auzia epaitzen ari** (5); **auzian epaitzen** (6); **auzian epaitzen ari** (6); **baitan epaitzen** (3); **bakarrik epaitzen** (4); **bat epaitzen** (3); **bera epaitzen** (3); **dira epaitzen** (6); **direla epaitzen** (3); **epaitzen ari** (76); **epaitzen ari den** (6); **epaitzen ari dira** (18); **epaitzen ari direla** (5); **epaitzen ari diren** (25); **epaitzen ari direnak** (3); **epaitzen ari ziren** (3); **epaitzen ditu** (8); **epaitzen ditugu** (3); **epaitzen dituzte** (4); **epaitzen dituzten** (4); **epaitzen du** (9); **epaitzen duela** (5); **epaitzen duen** (11); **epaitzen duenaren** (4); **epaitzen dute** (6); **epaitzen duzu** (3); **epaitzen eta** (5); **epaitzen ez** (4); **epaitzen hasi** (16); **epaitzen hasi dira** (6); **epaitzen hasi ziren** (3); **epaitzen zituen** (5); **epaitzen zituzten** (6); **epaitzen zuten** (9); **epaitzerik ez** (4); **ere epaitzen** (5); **eta epaitzen** (13); **eta epaitzen ari** (3); **gabe epaitzen** (3); **gu epaitzen** (3); **hori epaitzen** (4); **hussein epaitzen** (3); **inor epaitzen** (3); **lagun epaitzen** (3); **lana epaitzen** (3); **lana epaitzerik ez** (3); **moussaoui epaitzen** (3); **ziren epaitzen** (5); **zorrotz epaitzen** (4)

---

epaitu[2], epai(tu), epaitzen *(orobat **epaiten**)* **1** du *ad* ebaki.

Hirurogei urteren atzerapenaz baldin bazen ere, lepoa **epaitu** behar baitzidaten biharamunean. Koldo Izagirre

Belarra egin beharra, **epaitu** beharra, sortzen da martxoan. Pello Zabala

Belarra da **epaitzen**, mozten, ebakitzen dena. Pello Zabala

Jokatu dira denak gogorki hala nola Betsen lurreratzen zituela kontrarioak iratzea **epaiten** den bezala. Herria

Uda eta aita belar **epaiten** irudikatu zituen. Itxaro Borda

Auzoak ogi **epaiten** eta epai arau, rafia esku batean, igitaia bestean, ezpalak trebeki estekatzen! Itxaro Borda

Nork daki moztu, **epaitu**, erauzi, erre beharrak ez ote zuen barnago sustraitu? Koldo Izagirre

Epaiteko makinaren olioztatzen eta burdinazko juntetan kokaturiko belar puskak eskuz kentzen. Itxaro Borda

---

epaitze *iz* epaia ematea, epaile gisa erabakitzea.

Halabeharrezko **epaitze**, ezbeharrezko hilketa. Juan Garzia

Dujailgo 148 biztanleren aurka heriotza zigorra ebazten zuen 1984ko ekainaren 14ko **epaitze** txostena, Saddam Husseinekin batera jujatuta dagoen Auad al Bandar Iraultza Auzitegiko epaileburuak izenpetuta zen. Berria - Mundua

Bi alderdi kontrajarriak, bakoitzak bere legitimitatearekin eta erabakiarekin, alde bateko legitimitateak bestearena ukatu ezinik, eta bien gainetik egongo zen **epaitze** arau unibertsalik inon ez. Joseba Zulaika

Hala iruditu zitzaion, behintzat, Klemente aita santuari; gizon onberegi baten eskuetan zegoela **epaitze**-lana. J.M. Olaizola "Txiliku"

epaitzearren *adlag* epaitzeko.

Badirudi entzuten ari direla, jendeak entzuterakoan espresioa kentzeko joera duenez, ez **epaitzearren**. Lander Garro

---

epantxatu, epantxa(tu), epantxatzen du *ad* eragotzi, galarazi.

Hebenko dantzari saldo ederra zen, haatik aditüen arabera, hoberenen ikustetik **epantxatzen** dü joritarzün horrek. Herria

---

epatante *izond* oso harrigarria, aho zabalik uzten duena.

Lehen enkontru haietako batean, agian lehenetakoa zelako hain zuzen, izan zen Enrikeren jarduna **epatanteenetakoa**. Iñaki Iñurrieta

Indonesian aterea zen, eta esklusibitatearen urrea zuen: beste inork ez zuen, egun horretan, argazki **epatante** hura argitaratu. Iñigo Aranbarri

---

epatatu, epata(tu), epatatzen **1** du *ad* harritu, aho zabalik utzi.

Dizipulua aurrean zuelarik, maisu sentitzen zela, eta orduan hegoak libre uzten zizkiola etorriari, bere erudizioaz bestea **epatatzeko**. Iñaki Iñurrieta

Ez diot hau poema haiek, txarraren txarrez, akabu horixe merezi zutelako, ezta ere idazlanak suntsitzearen bindikazio horrekin inor **epatatu** gura dudalako, ez naiz hain snoba. Xabier Mendiguren Elizegi

Jada ez dakizue zer txorrada esan, zer mozolokeria idatzi, zer txatxukeria asmatu, zer zentzugabekeria irudikatu gainerakoengandik bereizteko, gainerakoak **epatatzeko**, eskola-gelako lehenak izateko, debalde bazkaltzeko, dirulaguntzak kobratzeko eta kolpe zorririk jo gabe bizitzeko. Jon Alonso

Bere lagunak **epatatu** nahi zituen batek bota omen zuen, kastitatea zela bere perbertsioa; denek onartu omen zioten ez zegoela hori baino perbertsio makurragorik. Xabier Mendiguren Elizegi

---

epe **1** *iz* zerbait egiteko denbora bitartea; nolabait mugatutako denbora bitartea.

Epea bete baino lehen.

Epe hori hilaren 16an amaitzen zen. Edurne Elizondo

Epea igaro eta dolarra kontratuaren prezio azpitik badago, kontratuaren jabeak ez du noski kontratua betearaziko. Iñaki Heras

Senideok, **epea** laburtu egin dela diotsuet. Elizen arteko biblia

Jaunak, gainera, **epea** ezarri zuen, esanez: "Bihar egingo dut hau lurralde honetan". Elizen arteko biblia

Epea zabalik egon da proposamen edo emendakin alternatiboak aurkezteko. Berria - Harian

Gehienetan hiru hilabete inguru egiten zituen hiri bakoitzean, baina ez zen beti **epea** bera izaten. Harkaitz Cano

Bigarren etaparen **epea** apirilaren 15 ean bururatzen zen. Herria

Zordunak errukia eskatzen zion apalki zaldunari, eta Frantzisko dohatsuaren maitasunagatik ordaintzeko **epea** luzatzeko. Askoren artean

Atzo gauean amaitu zen hautagaiak aurkezteko **epea**. Berria - Mundua

Apirilaren 30a arte luzatuko litzateke Marokok NBEko proposamenari erantzuteko izango duen **epea**. Berria - Mundua

Lanen igortzeko **epea**: irailaren 25 a. Herria

Lansaria lana burutzeko **epearen** araberakoa izango da: sei mila euro aste betean bada eta erdia **epea** luzatuz gero. Migel Angel Mintegi

Haren berririk izan gabe ohikotzat har litekeen **epea** gaindituta, kezkatzen hasi nintzen. Migel Angel Mintegi

Emaguzu zazpi eguneko **epea**. Elizen arteko biblia

Hiru orduren **epea** dutalakotz, Sarria bisitatzera noa. Piarres Aintziart

Ezinbestean, etsi bat hartu nuen, bi asteren **epea** ez dela halere hain luzea, luze iduri badu ere. Janbattitt Dirassar

Ene lanak **epea** uzten dit kontseilu horri segitzeko. Marzel Etxehandi

Hamar eguneko **epea** zuen poliziak, lege antiterroristaren arabera, atxilotuak torturatu eta ahalik informazio gehiena ateratzeko, baina hamar egunak bete baino lehen hil zitzaien Joxe Arregi. Xabier Mendiguren Elizegi

Lehorreratu bezain fite, egun bakarreko **epea** eman niean, uhartetik alde egiteko. Joan Mari Irigoien

Urtea amaitu baino lehen alderdien mahaiaren osaketari, funtzionamenduari eta **epeei** buruzko proposamen zehatza egin dezan. Berria - Harian

Gardavüaren **epea** ahitzean, preso eman zuten Eusko Armadako buruzagia. Itxaro Borda

117.000 milioi dolar mobilizatu behar izan ziren, lau hilabeteko **epean**. Koro Navarro

Euskara batuaren araugintza: 1968-1978 **epea**. Koldo Zuazo

-Une Honetarik goiti, egun baten **epea** duzue -abisatu zuen-. Elena Touyarou

Mende bateko **epean** gutxi gorabehera, 1430-1540 urteen artean. Koro Navarro

1993-1997ko **epean** Europar Batasuneko Estatuen unibertsitate eta ikerketarako herri erakundeetan egindako IGrako gastua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitatean sartzeko sistema murritzaileak ezartzea; unibertsitatean ikasleek eman ditzaketen urteen **epea** murriztea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aldez aurretik zehaztutako **epean** ikasketak bukatzeko gai diren ikasleak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gerritik esku-bonba bat zeukan zintzilik, alemana, zurezko bere giderrarekin, **epean** eztanda egiten duten horietarikoa. Juan Garzia

Jende askok hasten baititu ikasketak, baina gutxik bukatu aldez aurretik pentsatutako **epearen** barnean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrek **epe** bat irauten ahal du baina zedarrietarik jalgi eta bere ohera itzultzen den erreka bezalaxe, jendeak goiz edo berant bere zuzenak eskatzen ditu eta, gaizki erabili dituztenek, beren hutsengatik pekatzen dute. Elena Touyarou

Epe batez, sukaldean bakarrik aditzen zen pedalek eragin ehundegi-zuren kriskitina. Elena Touyarou

Adiskidearen paperak **epez** kanpo zeudela onartu izanak indartu egiten du zure aitorpena. Rafa Egiguren

Eperik eperako epeak halakoak ziren axuri merkatuetan maiz denbora galtzen zutela uste zutenentzat. Itxaro Borda

Komeniko lukek Ines Villalpando andrearengana joango bahintz eta **epetan** emateko eskatu urrirako. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

1964ra bitarteko bide luzean izandako gorabeherak eta atzera-aurrerak erakutsiko dira saioaren lehenbiziko atalean, eta lau **epe** nagusi bereiziko dira ibilbide horretan: [...]. Koldo Zuazo

Berriro ezarri nituen **epe** jakinetan egin behar ziren egur-eskaintzak. Elizen arteko biblia

Produktu eratorriak, salgai bati buruz **epe** jakin batera salerosketa bat egiteko kontratuak dira. Iñaki Heras

Epe laburra bakarrik dutela gogoan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Preziorik merkeena zuen, eta **eperik** laburrena agintzen zuen. Berria - Kultura

Gisa hortan auzitegien lana arinduko dela eta afera ainitz **epe** labur batean trenkatzen ahalko direla. Herria

Nolanahi ere, emaitzak ez dira **epe** laburrean helduko. Berria - Kirola

Epe laburreko gordailuak **epe** luzeko kreditu bihurtzea. Koro Navarro

Epe laburrerako teknologia garapenak **epe** luzerakoa jan ez dezan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ordaina **epe** laburrik barne etorri zitzaien. Elena Touyarou

Dirua erasopean duten herrialdeei **epe** laburreko eta **epe** ertaineko finantza-laguntza emateko aukerak ugalduz. Koro Navarro

Epe ertainera edo luzera lanpostu berrien sorkuntzak balizko efektu orekatzaileak sortuko lituzkeen arren, murrizketa gertatzen den unean, nork ordainduko du? Iñaki Heras

Epe motzean mozkin handiak lortzeko obsesio hori. Koro Navarro

Politika murrizgarrien mugak azaldu dira nolabait: **epe** motzera, behintzat, inbertsioa eta enplegua areagotzearen kontra jokatzen dutela. Iñaki Heras

Hiru segundoko **epe** luzea hartu dut erantzun baino lehen. Anjel Lertxundi

Epe luzean hartuta, nazio-estatu lehiakide batzuek eratu duten munduko ekonomiaren aroa, parentesi historiko luze baten moduan ager daiteke. Koro Navarro

Orobat azpimarratzen du, **epe** luzeko ekonomia-garapenerako, jarduera estrategikoen sustapenean estatuak duen eginkizun erabakigarria. Koro Navarro

Dohain eta kontra-dohain horiek, **epe** luzera, orekatu egiten dira, eta modu berean gertatzen zaizkie onuragarri jarduera horretan parte hartzen dutenei. Koro Navarro

Epe luzera Marte ikertzen hasteko urratsak ere egin nahi dituzte. Berria - Gaiak

Horretarako, dirulaguntzak eta **epe** luzerako maileguak erabil daitezke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bazekien **epe** infinitu batean gizon orori gauza guztiak gertatzen zaizkiola. Juan Garzia

Azkenik, ezarritako **epean**, Portziunkulako Santa Mariara itzuli ziren. Askoren artean

Bajako **epea** luzatzea nahi zuen, artean ahul sentitzen zela-eta. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sailburuak tinko eutsi die 2010eko **epe**-mugari eta akordioa egin beharrari, Seguruenez etorkizunaren ezabaketa horren eraginez, zeinaren bidez baretzen baitu izpirituak **epe**-amaieraren angustia. Berria - Harian

Akordio gehienek hamabi-hogeita lau hilabetekoa izan ohi den **epe**-amaitzeari dagozkio bakarrik. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Konstituzioak presidentearen aginte **epea** lau urtetik seira luzatzen du. Ez bada bere delituari jarritako preskripzio-**epea** igaro. Pako Aristi

Apirilean jarriko da indarrean, eta estatukideek bi urteko trantsizio **epea** izango dute. Berria - Ekonomia

Hitzak eta izenak aukeratzea, argitaratze **epea** errespetatzea, lerroak kontatzea. Joxan Elosegi

Instalazio **epearen** bi fase horiek 20-30en bat urte hartuko lukete, gero atzeraldiari tartea bat uzteko hedapen fasearen aurretik. Berria - Ekonomia

Berme-**epea** gaindituriko materiala izaten zuan ia beti. Hemendik aurrera argitaletxe honetan lan egiten duten zuzentzaile guztiak gidatzeko ardura hartuko du, bai lan-**epeak** eta erritmoei buruzkoan nola zuzenketen txukuntasunari buruzkoan. Amets lurrean bere **bizitza**-epea berritzekotan. Juan Garzia

Zenbateraino ote geunden gaizki ohituta, ezen neska frantsesekin ere abstinentzia **epe** bat gordetzera beharturik sentitzen ginen. Ramon Saizarbitoria

Segurtasun-**epe** luzeagoekin lan egin behar dugu. Esperientziak erakusten duenez, denbora-**epe** luzeetan zehar izan daiteke sistemen garapen kualitatiboa, hazkunderik gabe. Jon Alonso

Datu horiek ez datoz guztiz bat, unibertsitatean badirelako, eta gero eta gehiago izango dira gainera, adin **epe** horretatik kanpo daudenak, bai gazteagoak bai zaharragoak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Probaldiko urte-**epea** betetzean, onartua izan bedi anaiarteko obedientziara. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arras epe laburrean (7); **bai epe** (5); **baina epe** (37); **baina epe luzera** (7); **baino epe** (5); **beste epe** (6); **beste epe bat** (5); **da epe** (33); **den epe** (10); **denbora epe** (6); **dira epe** (14); **ditu epe** (9); **du epe** (16); **dut epe** (5); **dute epe** (10); **epe barruan** (7); **epe bat** (47); **epe batean** (11); **epe baten** (9); **epe batez** (12); **epe berdinean** (7); **epe berean** (51); **epe berean baino** (28); **epe berri** (14); **epe berri bat** (9); **epe berria** (5); **epe ertain** (23); **epe ertain edo** (8); **epe ertain eta** (10); **epe ertainean** (29); **epe ertaineko** (5); **epe ertainera** (24); **epe ertainerako** (6); **epe eta** (11); **epe eta helburu** (7); **epe guztiak** (6); **epe hau** (5); **epe honetan** (6); **epe hori** (65); **epe horren** (14); **epe horretan** (72); **epe hortan** (9); **epe jakin** (24); **epe jakin batean** (7); **epe jakin batera** (6); **epe labur** (31); **epe labur batean** (8); **epe labur edo** (5); **epe labur eta** (5); **epe laburra** (7); **epe laburrean** (201); **epe laburrean ez** (8); **epe laburreko** (39); **epe laburrekoa** (5); **epe laburrera** (56); **epe laburrera ez** (8); **epe laburrerako** (13); **epe laburrez** (6); **epe laburrik** (13); **epe laburrik barne** (12); **epe luze** (18); **epe luze batean** (7); **epe luzea** (9); **epe luzeagoa** (6); **epe luzeagoan** (5); **epe luzean** (53); **epe luzeko** (62); **epe luzekoa** (6); **epe luzekoak** (6); **epe luzera** (174); **epe luzera begira** (17); **epe luzerako** (94); **epe luzerakoa** (5); **epe motz** (5); **epe motzean** (58); **epe motzeko** (15); **epe motzera** (33); **epe motzera ez** (5); **epe motzerako** (16); **epe zehatzik** (6); **ere epe** (11); **eta epe** (111); **eta epe hori** (6); **eta epe horretan** (7); **eta epe laburrean** (15); **eta epe luzean** (6); **eta epe luzeko** (6); **eta epe luzera** (7); **eta epe luzerako** (11); **ez da epe** (8); **ez epe** (7); **hain epe** (11); **hain epe laburrean** (5); **hilabeteko epe** (10); **hori epe** (8); **horiek epe** (6); **horrek epe** (12); **iaz epe** (21); **iaz epe berean** (20); **iazko epe** (18); **iazko epe berdinean** (5); **iazko epe berean** (8); **nahiz epe** (5); **oso epe** (32); **oso epe laburrean** (10); **oso epe luzean** (5); **urteko epe** (14); **zen epe** (6); **zuen epe** (6)

alegazioak aurkezteko epea (5); **arteko epea** (101); **arteko epea du** (11); **arteko epea dute** (12); **arteko epea eman** (28); **arteko epea izango** (8); **arteko epea jarri** (10); **astebeteko epea** (13); **asteko epea** (18); **atxilotze epea** (5); **aurkezteko epea** (102); **azken epea** (25); **bateko epea** (11); **bateko epea eman** (5); **bi asteko epea** (10); **bi eguneko epea** (12); **bi hilabeteko epea** (17); **bi urteko epea** (9); **bihar arteko epea** (6); **bitarteko epea** (16); **bost eguneko epea** (12); **da epea** (13); **duen epea** (5); **dute epea** (6); **egiteko epea** (36); **eguneko epea** (100); **eguneko epea dago** (5); **eguneko epea du** (11); **eguneko epea dute** (6); **eguneko epea eman** (22); **eguneko epea izango** (10); **emaiteko epea** (8); **emandako epea** (9); **emate epea** (6); **emateko epea** (73); **emateko epea zabalik** (6)

epea agortzen (5); **epea amaitu** (19); **epea apirilaren** (6); **epea atzo** (8); **epea baino** (14); **epea bete** (21); **epea bete arte** (5); **epea bi** (11); **epea bi urtetik** (5); **epea bihar** (7); **epea bukatu** (14); **epea bukatzen** (5); **epea dago** (7); **epea datorren** (6); **epea dauka** (7); **epea daukate** (6); **epea du** (44); **epea dute** (32); **epea eman** (105); **epea eman die** (7); **epea eman dio** (13); **epea eman diote** (6); **epea eman zien** (16); **epea eman zion** (27); **epea eman zioten** (7); **epea emango** (5); **epea ematen** (13); **epea ere** (5); **epea eskatu** (8); **epea eta** (17); **epea ez** (11); **epea ezarri** (6); **epea gainditu** (7); **epea gaur** (9); **epea helbidea** (6); **epea hilaren** (5); **epea igaro** (7); **epea ireki** (7); **epea izan** (8); **epea izanen** (9); **epea izanen dute** (5); **epea izango** (53); **epea izango du** (22); **epea izango dute** (24); **epea jarri** (25); **epea luzatu** (25); **epea luzatzea** (11); **epea luzatzeko** (9); **epea luzatzeko eskatu** (5); **epea maiatzaren** (15); **epea martxoaren** (7); **epea utzi** (5); **epea zabaldu** (10); **epea zabalduko** (9); **epea zabalduko da** (5); **epea zabalik** (15); **epea zabalik dago** (8); **epea zehazten** (6); **epea zehaztu** (10); **epea zuen** (11); **epea zuten** (5)

eskatzeko epea (9); **eta epea** (10); **fitxaketak egiteko epea** (8); **gehienezko epea** (7); **gutxieneko epea** (5); **hamabost eguneko epea** (7); **hamar eguneko epea** (13); **hartzeko epea** (5); **hautagaitzak aurkezteko epea** (11); **helegiteak aurkezteko epea** (7); **hilabeteko epea** (98); **hilabeteko epea dute** (5); **hilabeteko epea eman** (11); **hilabeteko epea izango** (17); **hiru eguneko epea** (11); **hiru hilabeteko epea** (19); **hiru urteko epea** (12); **inkomunikazio epea** (5); **itzultzeko epea** (5); **izen emate epea** (6); **izen emateko epea** (5); **izena emateko epea** (49); **izenak emateko epea** (5); **izenen emaiteko epea** (5); **jarritako epea** (5); **jasotzeko epea** (13); **laguntzak eskatzeko epea** (5); **lanak aurkezteko epea** (14); **lortzeko epea** (8); **onartzeko epea** (7); **ordaintzeko epea** (5); **orduko epea** (28); **orduko epea eman** (15); **proposatzeko epea** (5); **sei hilabeteko epea** (20); **urtebeteko epea** (18); **urteko epea** (47); **urteko epea du** (7)

urteko epea izango (5); **zuen epea** (8); **zuzenketak aurkezteko epea** (19)

arteko epean (13); **astebeteko epean** (10); **asteko epean** (6); **bateko epean** (17); **baten epean** (5); **bi asteko epean** (5); **bi epetan** (7); **bi hilabeteko epean** (9); **bi urteko epean** (17); **bitarteko epean** (9); **bost urteko epean** (18); **da epeak** (6); **dituen epeak** (7); **eguneko epean** (35); **epeak bete** (6); **epeak betetzen** (5); **epeak eta** (20); **epeak luzatu** (5); **epean bi** (6); **epean eta** (5); **epearen barruan** (9); **epeei buruz** (5); **eperik ez** (15); **eperik gabe** (9); **eperik jarri** (8); **eperik laburrenean** (7); **eperik zehaztu** (6); **epetik kanpo** (5); **epez kanpo** (22); **epez kanpo aurkeztu** (5); **erdiko epean** (6); **eta epeak** (24); **eta eperik** (8); **hamar urteko epean** (12); **hilabete bateko epean** (10); **hilabeteko epean** (64); **hiru hilabeteko epean** (13); **hiru urteko epean** (8); **jarritako epeak** (6); **lau urteko epean** (15); **lehen epean** (5); **orduko epean** (17); **sei hilabeteko epean** (10); **urtebeteko epean** (18); **urteko epean** (98)

---

epealdi *iz* epea.

Epealdi baterako bazkide diren langileentzat langabezia prestazioa lortzea. Berria - Ekonomia

10 urteko **epealdia**. Iban Zaldua

Bosturteko baterako **epealdia** hautatu nuen, baimendurik dagoen laburrena. Iban Zaldua

36-39 **epealdiko** gudak eragindako biktimak, 39-75 frankismoaldiak eragindako biktima eta ondorioak, edota 75-05 Espainiako sasi-demokraziak eragindakoak. Berria - Harian

40ko hamarkadan hasitako **epealdiarekin** datoz arazoak. Berria - Kultura

Bisitetarako **epealdi** luze batean jende bera izatea eragiten dute horrekin. Berria - Euskal Herria

Inongo diru kopuruk ez du behar bezala islatzen borondatez kontrako langabezia iraunkorreko **epealdi** luzeen zamak gizakiengan duen eragin psikologikoa. Iñaki Heras

---

epedun *izond* epea duena.

Hizkuntz politika oso bat aplikatu behar da, eraginkorra, **epeduna**, helburu zehatzak eta lorgarriak dituena, administrazio guztiak inplikatzen dituena eta sail artekoa. Berria - Euskal Herria

Administrazio bakoitzaren euskalduntze plan eraginkorrak eta **epedunak** abian jartzea proposatzen du akordioak, besteak beste. Berria - Euskal Herria

---

epeka 1 *adlag* epetan.

Epeka itzultzen zizkidan gastuak, hutsik egin gabe. Juan Kruz Igerabide

Nik **epeka** pozoitu behar nuen ordea. Koldo Izagirre

Epeka emango dugu horren berri, apurka-apurka, hitz-lasterraren harmoniara egokiturik. Karlos Linazasoro

Epeka ezarriko dute legea. Berria - Gaiak

Naval **epeka** itxiko dutela uste du ELAk; CCOOk eta UGTk, aldiz, errentagarria izango dela. Berria - Harian

Diru laguntza horien itzulera atzeratu edo **epeka** ordaintzeko aukeraren aurrean, [...]. Berria - Ekonomia

Etika, garantiak edo segurtasuna nahi bazenuen, **epeka** ordaindu beharreko mikrouhin-labe bat erosi besterik ez zenuen. Harkaitz Cano

Justxenkok esan du prest dagoela salneurri hori ordaintzeko, baina ez bat-batean igota, **epeka** baizik. Berria - Mundua

2 *epekako izlag*

Argi dago, **epekako** ordainketa gehiago dago iristeko. Oskar Arana

Akzioak erosi dituztenen %84,7 bazkideak dira, eta %84,5ek eskura ordaindu dute, klubak bi banketxerekin hitzartutako **epekako** krediduak aprobetxatu gabe. Berria - Kirola

Inbertsio funtsen eta **epekako** gordailuen hazkuntza, ostera, %23,9 eta %17,4koa izan da, hurrenez hurren. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta epeka (5)

---

epel 1 *izond* bero samarra, tenperatura ez hotza eta ez beroa. ik**hotzil; hotzepel**.

Laino trinkoa zegoen Tolosan arrastiri **epel** hartan. Txillardegi

Gau **epela** zen, eta argia. Eider Rodriguez

Biharamunean, euri **epel** batek estaltzen zituen Hong Kongeko espaloiak. Ramuntxo Etxeberri

Eguzki errainuen euri **epel** hartan. Joan Mari Irigoien

Ur **epel** edo ez oso hotzetan. Berria - Harian

Hala ere, ez nuen ur **epelaz** gozatzeko aukerarik izan Mediterraneoak itsaso **epel** eta barearen sona du. Alberto Ladron Arana

Andreak ez zuen erantzun, aurpegia berotzen zion haize **epel** hark estuturik. Karlos Zabala

Kalera irten zelarik, haize bolada **epel** batek bildu zuen. Patxi Zubizarreta

Eguteran hegoak beste aire-poltsa **epela** pilatzen du hurrengo mendi zerran. Pello Zabala

Tarteka, itsasoko haize hezea bolada **epel** eta luzeetan iristen zen. Jose Morales

Haize ufada **epel** batek agurtu ninduen leun. Txillardegi

Haize leun eta **epel** batek inarrosi ditu gaztainondoak. Pello Lizarralde

Hegoaldetik datozen korronte **epelek** eragozten dute Barentseko itsasoa guztiz izoztea. Berria - Gaiak

Egun iguzkitsua eta aski **epela** dute lagun. Eneko Bidegain

Dena biltzen duen lurrun **epel** eta usaintsuak. Xabier Olarra

Giroa ere **epela** zegoen. Txillardegi

Ama eserlekua argitara hurbildu eta kasik semearen idazketa orrialdearen gainean jartzen zelarik, halako ondoez batek jotzen zuen Florent, gorputz ahaltsu **epel** hura bere ondoan sentitzean. Karlos Zabala

Eberen gorputz argal **epel** leuna nire alboan etzan da. Sonia Gonzalez

Mihi samur, **epel** eta hezeak klitoria maitasunez laztantzen eta miazkatzen duenean, berotasun, eszitazio eta pasio uholdeak hartzen du emakumea. Luis Elberdin

Bake gozo eta handi bat nagusitu zitzaidan, manta **epel** batek bilduko banindu bezala. Hasier Etxeberria

Beti geratzen da gure baitan lur puska heze **epel** bat, non bizitza ez baita nehoiz agortzen. Joan Mari Irigoien

Gela atsegin eta **epel** batean, gantzezko kandela xume baten argitan, samovarraren marmarra lagun. Jose Morales

Goioren sabelpean eseri zen, Goioren zakila beste gordeleku heze, bigun, **epel** horretan sartuta. Joseba Sarrionandia

Amets bakan batzuetan, oso noizbehinka, sentitzen duzun betetasuna, magal **epel**-gozo-leun batetik partitu nahi eza. Iñaki Iñurrieta

Ukitu **epel**, umel eta apur bat itsaskorra sentitu nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Odolaldi **epel** bat banatu zitzaion masailetan. Anjel Lertxundi

Usain heze eta **epel** bat iritsi zaio. Pello Lizarralde

Taberna batean zegoen, hain juxtu, edalontzi bat garagardo **epel** aurrean zuela. Monika Etxebarria

Lore sorta **epel** bizi bat zirudien. Karlos Zabala

Batean, **epel** eta lehorragoa; bestean, frexkoago eta umelagoa. Pello Zabala

Bero **epel** orok beregana erakartzen baitu hezetasuna. Santiago Iruretagoiena

Elur sorgindua, **epel** eta lehorra, erortzen zen sabaitik. Iñaki Mendiguren

Nerea zuen gogoan, harekin igarotako gaua, haren larruaren sentipena berean, bularren sinpletasun **epela**, gerrialdearen malgutasuna, sabelpea... Unai Iturriaga

Mahai gainera begiratu eta ogia ikusi dut, **epela** oraindik, mamiaren beroa azaletik ke mehez dariola. Joseba Sarrionandia

Ilargi esnetan bustiriko loreak balkoietatik zintzilik, mendekuaren kolorekoak, garrasiaren kolorekoak, haize **epelaren** kulunkan. Eider Rodriguez

Jardina mota guztietako palmondoz betea dik, eta argiak ahul eta emeak dituk, dena hezea, lurrintsua eta **epela** duk, berotegietan bezala. Xabier Olarra

Bere hatsa sentitzen nuen musuan, **epela** eta pipa tabakoaren usainekoa. Bernardo Atxaga

Ilunez ilun hegan etorri da mahai gaineko lanpararen argitasun **epelera**. Patziku Perurena

Wendyk maite-maite egiten zion eta ur **epeletan** garbitzen zion zauria. Julen Gabiria

Txapela burutik kendu nuen, kanpoan bide nagusian, arratseko haize **epelean**, isilik bizikletaz zihoazen hiru soldaduren figurak pasatu zirenean. Urtzi Urrutikoetxea

Joachimek ezin erantzun, panpina zintzilikari eta kiratsa zerion bat besterik ez baitzen hura han, dagoeneko birritan esan bezala, haize **epeletan** kulunkari... Joxe Austin Arrieta

Debekatu egin zion anaia sukaldariari, bezpera arratsetik, ohi denez, lekariak ur **epeletan** ipintzea. Askoren artean

Nahiago zuen, kanpoko hotza igartzean, aldi baterako ohean geratu, **epelean**, eta loak hartu zuen berriro. Joseba Sarrionandia

Minimoak askoz gozoago eta leunagoak dira Donostian: 15.5 minimoen batez bestekoa, hor kosta txokoan **epelean**. Pello Zabala

-Aizue, zoazte haize **epela** hartzera! Antton Olano

Maitale-sua epeldu egiten da, eta su **epela** ondo gauza ziztrina da, gero. Joxerra Garzia

2 karrik ez duena.

Frantximentek eta euskaldun **epelek** ez dezaten duda izpirik ukan euskara hemen bere etxean dela. Herria

Haatik, euskotar **epelak** ei ziren horkoak. Edorta Jimenez

Nik bai, eta noizbait azalduko dizut zein den nire teoria, nahiz eta ordurako, prestigiozko poeta **epel** bihurturik, zure anaia terroristaz lotsatuko zaren. Eider Rodriguez

Erdibide **epel** bat ere zilegia zen, bi posturen arteko zubia. Karlos Linazasoro

Arrastiri aurreko ordu **epel** hauetan. Txillardegi

Magiatik eta edertasunetik sortzen zen bake **epel** batek bete egin ninduen. Alberto Ladron Arana

Horretan gelditu ginen bi musu **epel** elkarri emanik. Janbattitt Dirassar

Jende on-onen gizarte onak malko **epel** gezurrezko bat ixurtzen du mendizale zintzoaren heriotzan. Iñaki Segurola

Bizitzeko grinarik gabe, zentzuen anabasan zegoen, halako lozorro gozo **epel** batek hartua. Patxi Zubizarreta

Esker oneko sentimen **epel** batek bete zidan barrena, Hermannengatik izan ez balitz, denek ikusiko baitzuten odolak eragiten zidan nire ahulezia. Anjel Lertxundi

Sandraren ohea, eta besarkada amaiezin hura, eta orduen joan-etorri **epela**. Iban Zaldua

Interes **epel** samarra zuen Knox doktoreak zaharrenganako. Juan Garzia

Goiok ez zuen halako sentsazio bigun **epelik** inoiz sentitu. Joseba Sarrionandia

Bat-batean, izpi **epel** batek argitu zion aurpegi zurruna. Jose Morales

Ume ostia haiek larrutzeko gogo bizia sentitu zuen, ostiatxo **epel** batzuk banatzeko, baina fusilak zeuzkaten eskuetan eta begiratu izoztu bat begi-ninietan. Karlos Linazasoro

Euskarari gorroto diotenei, mezu bat; euskarekiko **epel** direnei, beste bat; euskara maite-maite izan baina erabiltzen ez dutenei, beste bat. Joxerra Garzia

Baina **epel** zarelako eta ez bero, ez hotz, botagura emateraino nazkatzen nauzu. Elizen arteko biblia

Epel nahiz bero, klaserik, jainkorik eta aberririk gabeko gizartearen ametsa pixkanaka joango zitzaidan ahazten. Xabier Mendiguren Elizegi

Emakumeenganako jarrera bikoitza, amultsua eta aldi berean **epela**. Aingeru Epaltza

Cymuned taldeak **epelegitzat** jotzen du Plaid Cymru (PC) alderdi abertzaleak hizkuntzaren defentsan duen jarrera. Berria - Mundua

3 (adizlagun gisa)

Atzerri politikan **epel** aritzea leporatu dio Dick Cheneyk John Kerryri. Berria - Mundua

Hego Euskal Herrian bozen sukarra frangotto goratua balin bada, aitor dezagun iparralde huntan aski **epel** gaudela. Herria

Epel dago, baina euriak behar baino lehenago gautu du zerua. Sonia Gonzalez

Konturatu ginen etxean **epel** zegoen txoko bakarra beheko suaren ondokoa zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Beheko sua pizturik duzu, eta izarak **epel-epel**. Elurpean ere **epel** darrai lurrak 15-16 zentimetro behera. Anjel Lertxundi

Nire galtza bustita zegoen, blai, eta **epel** oso. Txillardegi

Nire eskuek ikara egiten zitenan, **epel**, neure bularrak ukitzean. Juan Garzia

Haren eskua han gelditzen zen, **epel**, gozamen zuhur batean; fereka hori plazer zilegi bilakatu zen, adiskidetasun seinale, kolosoak haurren lañotasunarekin onartzen zuena. Karlos Zabala

Epel eta bero antzean datorrela, inork ez dio eskertzen. Pello Zabala

-Eskerrik asko -erantzun zion Maimiek-, eroso eta **epel** egon naiz. Julen Gabiria

Eguzki beheratuaren argia ez zen etxe tarteetatik baino iristen pasealekura, eta argi-itzalak eta hotz-beroak sortzen zituen: argitan **epel**, itzalean hotz. Anjel Lertxundi

Nazioarteko komunitateak **epel** jokatzen du kasurik gehienetan. Berria - Gaiak

Iraultzaren aurrean ere, **epel** jokatu zuela leporatu ohi zaio Portalis honi. Andres Urrutia

Batzuek oihu egiten zioten; beste batzuk haserretu egiten ziren, ez baitzuten ipuina ulertzen, eta gehientsuenak **epel** geratzen ziren, hasieran bezala. Unai Elorriaga

Ura **epel** samar dago 13 gradutik 15era igo da. Berria - Harian

Indar ikaragarria du nobela osoak, lehendabiziko hitzetik hasi eta azkeneraino, eta ez du inor **epel** utziko. Berria - Kultura

Edonola ere ikuslea ez da **epel** geratuko bere artelanen aurrean. Berria - Kultura

Ez dute inor **epel** eta axolagabe utzi nahi: «Euskal jaien inguruko eztabaida piztu nahi dugu», baieztatu dute biek. Berria - Kultura

Lo **epel egingo** badute, aldez aurretik itxi beharko dituzte teilatu aldean hormek ageri dituzten zirrikitu handiak. Jokin Muñoz

Udaberria zen, **epel egiten** zuen. Pako Aristi

Epel egiten zuen, eta, nola edo hala, zoriontsu nintzen. Pako Aristi

4 (hitz elkartuetan leen osagai gisa)

Azken egunean haatik, **epel** aire agertuak ziren batzu ere frango gogorki mintzatu dira. Txitxare buztan bat billatzen badu, uraxe aski dik, **epel** pixar bat nabaitu orduko kantari asteko. Herria

Gaurkoaren antzera **epel**-giroa egiten zuen goiz hartatik, gutxienez. Pako Aristi

Kandelarioz ere, horixe arbuiatuko da: eguraldi **epel**-mengel ahul eta ustela ez dadila parera etorri. Pello Zabala

Kale-kantoi batean gelditu zen zigarro-usain limurtzaile eta goxo-**epel** bati atzemanda, esku bat sorbalda gainean ezarri baliote bezala. Lopez de Arana

5 (izen gisa)

Berehala pasatu ginen **epeletik** berora, eta eztabaida sutsua izan zen oso. Joxerra Garzia

Giroa ere, **epeletik** hotzera. Berria - Kultura

Beste babu horrekin hitz egiteko bihar arte itxaron beharko dugu, ea etxeko **epelak** burua zerbaitetarako dela gogorarazten dion! Unai Iturriaga

Kostoa, anfetak, gaueko **epela**, bakardadea, etxerik eza; eta erdian gu, Fermin eta biok. Pako Aristi

Eguzkiaren aurrez aurre, arratsaldeko lehen orduetako **epela** hobeto gozatzeko. Anjel Lertxundi

Zeren oraino ederki oroitzen baitut nola kontatzen zizkigun bere kontu haiek atariko **epelean**. Joan Mari Irigoien

ik beherago 7. Askoren artean

Llumek irribarre egiten du, jadanik ez du hotzik eta lo gozo batek hartzen du gauaren **epelean**. Antton Olano

Etxeko zaleen **epelean** lortuko dutelako balentria. Berria - Kirola

Sukaldeko **epelera** joan zen korrika. Unai Iturriaga

Zeregin jakinik ez zutenek nahiago izan zuten etxeko **epelean** geratu. Berria - Harian

Jeanek, bere piztiarekin, irribarre egiten zuen, isilik, aterpearen **epelean**. Koro Navarro

Makina bat bertsolari atera da sagardoaren **epeletan**. Berria - Kultura

Badakigu, musu baten **epela** ezpainetan eta maindireen artean izerdi lurrin gozoa utziz alde egin duen emakumeak ebaluaketa bat egingo duela bidean. Joxean Agirre

Orduan, suari ere **epela** estimatzen dio gehien. Joxerra Garzia

Esku haren **epela** behar nuen. Alberto Ladron Arana

Nolanahi dela, mingainaren **epelak** eta zapore mikatzak adierazten diote agian ezetz, agian gaur, ezagutzen ez duen arrazoi arraioren batengatik ez duela egin. Eider Rodriguez

Zereginik ez daukatenak bakarrik geratzen dira, bapo, Ohearen **epeletik** zeregindunen munduak nola funtzionatzen duen imajinatzen. Unai Iturriaga

Egotzia izanak -paradisutik, amaren **epeletik**- egiten ei du gizakia gizaki. Markos Zapiain

Horrexegatik dio higuina **epelari**. Joxerra Garzia

Bat-batean odolaren **epel** likitsa nabaritu nuen azalean. Xabier Montoia

Hura erretiratu ahala hasiko dira ixten abaraskako erretenak; hura erretiratu ahala, beste **epel** batek jango dio azala argizariari. Anjel Lertxundi

· Bitartean, tropelaren **epelean** joango naiz, ezkutatuta, denborarik ez galtzeko helburu xumearekin. etxekoen **epelean** igaro baititu azken egunak. Berria - Kirola

6 ***epelak*** egundokoak.

Egun batean, etsita, mehatxu eta guzti bota zion, alegia, bederatziurrena egingo ziola, eta, horrekin bere laguntxo kuttun hura agertzen ez bazen, **epelak** hartzeko zegoela; senperrenak ikusiko zituela. Pako Aristi

Apaizaren taldeko batek, altoa emanda, jaitsarazi zuen murgilduta zegoen maitasun-musikazko gailur mistiko haietatik, **epelak** hartu edo gurekin etorri dilema soila aurkeztuz. Koro Navarro

Elizatik irten ondoren, Pepponeren etxe aurrean bildu ziren denak, bai eta berari **epelak** esan ere. Koldo Biguri

Epelak entzun behar izan zitinan, eta bota beharrekoak bota ondoren arineketan joan nindunan etxera. Xabier Mendiguren Elizegi

7 ***epelean*** *(orobat* ***epeletan****) adlag*

Ederki, sar nazatela kartzelan, **epelean** egonen nauk behinik behin. Fernando Rey

Neska hantxe dago **epelean** udaberria buruan duela. Fernando Rey

Hotzean, planteamendu horrek ez garamatza inora; baina **epelean** edo, zergatik ez, berotan aztertuko bagenu. Unai Iturriaga

Hotzean, planteamendu horrek ez garamatza inora; baina **epelean** edo, zergatik ez, berotan aztertuko bagenu, eta Bilbon, Euskal Herriko hiriburuan kokatuko bagenu, ba bai. Unai Iturriaga

Zorionez jatetxean **epeletan** izango gara. Edorta Jimenez

Patxik hango kristalezko tabernan zerbait hartzera gonbidatu ninduen, oso ederra baitzen, **epeletan** kafe bat hartu bitartean, kanpoan elurra nola ari zuen ikustea. Patxi Zubizarreta

Zorionez jatetxean **epeletan** izango gara. Edorta Jimenez

Epelean goxo-goxo zeuden bi adiskideak; berotegiko loreak ziruditen, beirateen atzean gorritzen. Jon Muñoz

Argitan eta **epelean**, argizariko letrak desitxuratzen joango dira, izkribu guztia ezabatu arteino... Anjel Lertxundi

8 ***epel-epel***

Ohe atorra jantzita, oinak artile kizkurrezko alfonbraren gozotasunean, ohearen bero atseginez **epel-epel** oraindik. Karlos Zabala

Ardoa hoberenetik eta tea **epel epela**, eta gailetak, eta nahi beste janari. Joseba Sarrionandia

Atarira atera nintzen, ilargia ia betea, hego-haize **epel-epela**, errekastoaren murmurioa, kilkerrak, belar-usaina... Joxean Sagaztizabal

Beheko sua pizturik duzu, eta izarak **epel-epel**. Anjel Lertxundi

Esango zenuke **epel-epel** ez baino, nahikoa sano dagoela, igoal... 7-8 gradu edo, hor nonbait baietz! Pello Zabala

Orai arte, **epel-epela** joana da gisa hortako saila munta guttikoa balitz bezala. Herria

Kotoiaren azpiko gorputzaren biluzia aitortzen zuen neskaren irribarreak, biluzi arrastorik gabea, desiraz betea eta **epel-epela**. Koro Navarro

Eguerdi irian, sukaldetik ateratzean beroa izana zitekeen edateko bat emaiten ziguten, **epel-epela**. Marzel Etxehandi

Airea **epel-epela**. Aurelia Arkotxa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino epelago (7); **eguzkiaren epela** (5); **enpresen ligak epel** (8); **epel bat** (21); **epel batean** (9); **epel batek** (13); **epel dago** (5); **epel epel** (10); **epel epela** (9); **epel epela** (9); **epel eta** (47); **epel hartan** (12); **epel hori** (5); **epel zegoen** (6); **epela da** (6); **epela eta** (13); **epela izan** (8); **epela sentitu** (5); **epela zegoen** (7); **epela zen** (16); **epelak entzun** (11); **epelak entzun behar** (5); **epelak eta** (10); **epelak izan** (6); **eta epel** (21); **eta epela** (28); **eta epelago** (5); **eta epelean** (5); **gau epel** (8); **gau epela** (5); **giro epel** (5); **giro epela** (11); **giro epelean** (7); **goiz epel** (5); **haize epel** (9); **haize epela** (6); **haize epelak** (7); **harrera epela** (6); **inor epel** (5); **jarrera epela** (9); **ligak epel** (8); **ur epel** (6); **ur epela** (5); **ur epeletan** (10); **zaleen epelean** (10)

---

epelaldi **1** *iz* giro epeleko aldia.

Negua iluntzeetan hasten da, ezari-ezarian, udazkenaren **epelaldiak** birrintzen. Pako Aristi

Nahiz, egia esan, gure herrian Eguberri inguruan horrelako **epelaldiak** maiz samar gertatu. Txillardegi

Udatik negura bitarteko zurubi luze horretako giro egonkortasunik gabea eta aro ezinegonez jantzia nola den hau, ia segido etorri ohi da epelalditxo estimazioduna: udazken loretxoen **epelaldia** deitzen zaio tarte lehor gozo horri. Pello Zabala

2 irud/hed

Zenbait denboraz halako **epelaldi** batean bezala egonik, dinamika berri batean ber-abiatua da mugimendua, proiektu berriekin. Herria

---

epelalditxo *iz adkor* epelaldi laburra.

Hotz-beroaren jokoa extu eta labur konpondu ohi da gauaren eta egunaren artean: ezin asmatu, beraz, abenduko egun labur eta gau luzeotan fantasia gehiegiko konturik: **epelalditxo** laburren bat besterik. udatik negura bitarteko zurubi luze horretako giro egonkortasunik gabea eta aro ezinegonez jantzia nola den hau, ia segido etorri ohi da **epelalditxo** estimazioduna: udazken loretxoen epelaldi deitzen zaio tarte lehor gozo horri. Pello Zabala

---

epelarazi, epelaraz, epelarazten du *ad* epeltzera behartu.

Orduan zer egin Poutinek? Denen beharra badu, Bushek nahi duelarik Alemaniaren edo Frantziaren alderat hotzarazi, edo bederen **epelarazi**, oroitu behar du denbora berean ez duela abantail heien ganik urruntzea ere. Herria

---

epeldu, epel(du), epeltzen **1** da/du *ad* epel bihurtu, epel gelditu arte tenperatura berotu edo hoztu.

Kamamila **epeldu** egin da, gutxinaka edaten dut, bukatzen dudanean jaiki eta kalera ateratzen naiz buelta bat ematera. Mikel Hernandez Abaitua

Itzuli zara tabernara eta tila infusioa gehiegi **epeldu** da. Eider Rodriguez

Eguzkia bazterrak **epeltzen** hasi aurretik korrituko dira egutegiko proba ederrenetakoak. Berria - Kirola

Bizitza eredugarrien artean egokia deritzot Parisko parkean udazkeneko eguzkitan **epeltzen** ahalegintzen den printze batek lekutxo bat izateari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eguna **epeltzearekin** batean izotza ere urtu egingo zela uste genuen, eta iturritik ura aterako zela berriro. Xabier Mendiguren Elizegi

Eguraldia **epeldu** baino lehen hil zen zure aita, lan egiten zuen meategiko galeria bateko grisuak zapart eginda. Anjel Lertxundi

Manta haien pean ezkutatu eta **epeldu** zen halako batean. Joxemari Urteaga

Toki-Eder etxeko portala, berriz, itsasoaren parekoa zen horretan; kosta egingo zitzaion **epeltzea**, baina behin **epelduta** ederki asko mantentzen zuen giro goxoa. Joxemari Urteaga

Zainetako odola **epeldu** ere ez hargatik. Aingeru Epaltza

[Harresietan,] sartaldera begira daudenetan ere eguzkia goiz-goizetik **epeltzen** hasten da, eguerdian beroa izaten da eta arratsaldean erre egiten du. Santiago Iruretagoiena

Bata bestearen ondoan etorri ziren Henao kaleko etxera, sutontziak **epeldutako** egongelara. Javi Cillero

Salto txikitxoak emanez, txalo eginez, gorputza apurtxo bat **epeldu** nahian. Jon Arretxe

Lehenik, garbitu, **epeldu** eta hezetu egiten du arnasten dugun airea, biriketako barne-estaldura delikatua eraso termiko edo kimikoetatik babesteko ez ezik, airea birika

barruko albeoloetara ahalik eta egoera onenean bidaltzeko ere bai. Irene Aldasoro

Eguraldia **epeltzen** hasia zen, eta amak geletako leihoak irekiak zituen. Joseba Urteaga

Memoria elurra bezalakoa baita: erori berri xapatxetan aise urtzen da eguraldiak **epeltzera** eginez gero, baina egun askotan mara-mara gainezka pilatutakoa lurrera itsasten da iraunkor. Pako Aristi

Arratsalderako **epeltzen** hasiko du emeki-emeki, eta elurra 200-400 metrotik goiti egingo du. Berria - Harian

2 irud/hed

Astiro hurbiltzen zelarik, Caponek alkoholak **epeldutako** odolaren beroa sumatu zuen zakilerako bidean. Lutxo Egia

Maitale-sua **epeldu** egiten da, eta su epela ondo gauza ziztrina da, gero. Joxerra Garzia

Petrolioaren prezioaren beroaldia **epeltzen** ari dela, burtsak sasoiko dabiltza. Berria - Ekonomia

Egunen joanean, Mireiak eta Josebak bien arteko harremana **epeltzea** erabaki zuten. Fernando Morillo

Kafea hartu eta, sarri, klubetara jotzen nuen, asteko nekea eta etxeko giro hotza argi gorrisken pean **epeltzera**. Migel Angel Mintegi

Ez naiz "Che" amerikarraz mintzo aspaldian zendua baita, bi aldiz zendua idatz nezake, ukan duen arrakasta **epeltzen** ari baita. Herria

Denborarekin fedea **epeltzen** joan zitzaien Bretainiako biztanleei, eta Erdi Aroko erlijiosotasun sutsua apaltzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maitasun horrek hoztasuna **epeldu** beharko lukeela. Sonia Gonzalez

Domingok eta Estefaniak bihi bat ere ez zuten **epeldu** nireganako hoztasuna. Etxe barnean Verdiren *Aida*-k **epeltzen** zuen Sandro Passera jaunaren gela zabala. Aingeru Epaltza

Txirrina zanpaka egin nuen denborak **epeldu** zizkidan haserrearen su-pindarrak. Aingeru Epaltza

Urak batere **epeldu** gabe atxikitzen zuen elurraren oroimena. Aingeru Epaltza

Egun osoan zehar hurbiltzen ziren bisitariek ere apaldu eta **epeldu** ezineko tristura eta deserotasuna. Jokin Urain

3 (era burutua izen gisa)

Eta hipoteka mailegua dutenen auspoak ere, **epeldua** jaso zuen, momentuz interes tasen ufada atzera dela eta. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eguraldia epeldu (4); **epeldu ahala** (3); **epeldu da** (3); **epeldu egin** (5); **epeldu egiten** (6); **epeldu zuen** (3); **epeltzen ari** (5); **epeltzen eta** (3); **epeltzen ez** (3); **epeltzen hasi** (5); **epeltzen hasten** (4); **epeltzen zuen** (3)

---

epelduxe *izond* epeldu samarra.

Orobat, **epelduxeak** ziren garai bateko gora nahiak. Aingeru Epaltza

---

epelkeria *iz* epeltasun gaitzesgarria.

Epelkeria gaitzetsi izan dut pasioa gartsu goraipatuz, eta orain txori doilor bilakaturik nengoen. Malgutasuna, beste inongo politikan zuhurtzia izan daitekeena, **epelkeria** baita Ekialde Hurbilean. Eider Rodriguez

Julian Gorosperi **epelkeria** egotzi izan zaio behin baino gehiagotan, nortasun eza. Berria - Kirola

Epelkeria eta alderdikeriek ez dute tokirik tenore honetan. Berria - Euskal Herria

Itxurakeriaren kontra jarri ninduten haiek, **epelkeriaren** kontra, ondo gelditu nahiaren kontra; haien aldean, nahiago nituen bere ideietan zinez eta zurikeriarik gabe sinesten zutenak, basati samarrak izanda ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Nik **epelkeria** horren guztiaren kontra neukan arrazoi Manoel Arauxoganako mespretxuan. Koldo Izagirre

Beldurragatik edo **epelkeriagatik**, aholku hauek aintzat hartzen ez badira, ustez suntsituta dagoen eraikuntzaren oinarriak osorik uzten badira, zer gertatuko da? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jaungoikoa gogoratzera, bilatzera eta **epelkeriarik** gabe desiratzera garamatzan barne deia Egiaren iturri beretik datorkigu. oposizioko talde nagusiena, PSN, «noraezean» dagoela esan zuen, eta zuzendaritza berriari «**epelkeriaz**» jokatzea leporatu zion. Imanol Unzurrunzaga

«**Epelkerietan**» ez ibiltzeko aholkatu zion Lopezi EAEko PPren eledunak. Berria - Euskal Herria

---

epelki *adlag* epeltasunez.

Angie atarira jaitsi zenean **epelki** agurtu zuten elkar eta, euria zela eta, besotik harturik joan ziren euritakoaren azpian bi soinek elkar ukituz. Iñaki Zabaleta

Zakurrak begiak altxatzen ditu Damian datorrela ikusten duen bakoitzean, eta buztanari ere eragiten dio **epelki**, etzanda dagoen leku beretik, baina atearen ostean ezkutatzen den nagusiari egoten zaio adi. Hasier Etxeberria

Herrian ez zegoen argi gehiegi, eta, **epelki** samar adieraziaz, esan behar da San Joseko jendeak ez zuela oso gogoko gauean ateratzea. Xabier Olarra

Mattin harroina zen, eta ni etxean edo etxeko zoko batean galdu haizea, eta hargatik mintzatzen zen aita Mattinekin antsiatsu eta arduratsu, eta enekin **epelki** eta laxoki. Joan Mari Irigoien

---

epelsko *adlag* epel samar.

Eta beraz, eguerdi ririrako, **epelsko**. Txillardegi

Epelsko gure Sauternes hura. Joxe Austin Arrieta

Egiarteko eliza erromaniko ederra ere bai (arku laukoitza eta zutarri karratuetakoa, une hartan batera Allotzen eta Lakarren parrokia bikuna), pausagune atsegin **epelsko**; giro hotz, sarkor eta aratz hartan babesgune maite. Txillardegi

---

epeltasun **1** *iz* epela denaren nolakotasuna.

Saloi dotorea, beheko sua, **epeltasuna**. Joseba Sarrionandia

Ez zutela bere eskuek etxeko hormen egurrak arratsalderako hartzen zuen **epeltasuna** sentituko Eguzkia erdi ezkutatu denean eta haize hotza **epeltasuna** uxatzen hasi baino lehen, nire gelara itzuli naiz. Bernardo Atxaga

Epeltasuna nabaritzen du kale estuetatik eguzkitara ateratzen direnean. Imanol Zurutuza

Laster iluna izango da, eta iluntze horren **epeltasuna** irail-brisaren hozkirriak menderatuko du. Pako Aristi

Epeltasun horretan, halako batean, aingeru bat agertzen da, eta eskutik helduta paradisura eramaten zaitu. Joxean Sagaztizabal

Egongelako tapizen gainean jesarrita familiakideekin, berogailu zaharrari darion **epeltasunaren** babesean. Jon Arretxe

Maiatzako eguzkiak halako **epeltasunezko** zorabio bat zuen. Karlos Zabala

Nahiago zukeen larruazal zuri hartan dardaren **epeltasuna** nabaritu izan ez balu. Iñaki Zabaleta

Eskaleak ere badaude, [...] gauez erraustegiaren hormetan bermatuta -edo are tunelean ere- lo egiten dutenak, **epeltasunarengatik**. Oskar Arana

Ezkaratzearen **epeltasunera** barneratu nintzen lasterka, soraio, eta han lasaitasun amini bat sentitu nuen, hain ezaguna nuen usainaren babesera. Karlos Linazasoro

2 karrik ez duenaren nolakotasuna.

Nahi nuke erran zonbat sofritu duen gure Aita Sainduak ikusiz Frantziako eta Europako fededunen **epeltasuna**. Herria

Irlandarra izanda Ingalaterraren zerbitzura egonik, **epeltasunez** eta akaso traizioz akusaturik, nola ez zion, bada, ongi etorri egingo halako mesede mirarizkoari: aleman Inperioaren bi agente aurkitu, harrapatu, agian hil, alegia? Juan Garzia

Komandante ona zen, bazekien **epeltasuna** ematen heriotzari barre egin ahal izateko. Koldo Izagirre

Herr Haspern, ordea, onik irten zen lehendabiziko epaiketan, eta Hermannek beste irakasleen **epeltasunari** egotzi zion zigorrik gabe atera izana. Anjel Lertxundi

Epeltasunik gabe kritikatu zuen Alderdien Legea orduan, nabarmen eta modu harrigarrian, Zapateroren lagunmina dela kontuan hartuta. Berria - Euskal Herria

Herri hau bizi den garai historikoari ezin zaio aurre egin ahultasunetik, arduragabekeriatik, **epeltasunetik** eta, are gutxiago, Madrilekiko erabateko menpekotasunetik abiatuta. Berria - Euskal Herria

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ohe deseginaren erliebea errepasatuko zuen norbaitek eskuarekin, maindire nahasietan **epeltasun** gorderen baten bila. Joxean Agirre

Masailak hotzak zituen, baina gorputzetik **epeltasun** gozoa zeriola iruditu zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Sartzean, **epeltasun** hezeak biltzen zaitu. Lourdes Oñederra

Ukuilu erdi iluneko **epeltasun** hezean karta partida eder bat jokatzeko prestatu ziren. Josu Zabaleta

Lozorrotik esnatuxe, halako **epeltasun** jostarina nabaritu zuen zainetan barrena. Patxi Zubizarreta

Udaberriko **epeltasun** abegitsua etorri zen neguko hotz mingarria ordezkatzera. Patxi Zubizarreta

Euri ukiezinaren **epeltasun** astunak azpian zanpaturik zeukan kalea. Josu Zabaleta

Deika ari zaizkit, keinuka, inoiz lehenago izan ez naizen mundu horretatik, han gailen den **epeltasun** eroso eta inguratzailean murgil nadin. Mirentxu Larrañaga

Berandu samar abiatu naiz, zeruko eguzki makalak ematen zuen **epeltasun** apurra hobeto aprobetxatzearren. Jon Arretxe

Norak **epeltasun** atsegina sentitzen zuen olatuka, igurtziengatik bainoago, emakume hark igurtzien bidez erakusten zion bihotzarengatik. Anjel Lertxundi

Urbanoren etxolan ezagututako **epeltasun** humanoa. Paddy Rekalde

4 (hitz elkartuetan)

Argia eta itzala zuten kezka nagusi, guztiei **epeltasun** giroa emanez. Berria - Kultura

Tolerantzia erraza izan zen **epeltasun**-aroan, non Mendebaldeko kristautasunaren aldaerek galdua zuten beren agintea Mendebaldeko bihotz eta gogoetan, hauek artean ez zutelarik aurkitu beren debozio frustratuarentzako objektu alternatiborik. Iñaki Mendiguren

· Berak, bere besoek, bere lepoak ematen zieten fruituei maitasunezko bizitza hori, emakume **epeltasun** satinatu hori. Karlos Zabala

Yves, Thierry eta Jules aitzina bazihoazen lo-zaku zaharkituetan beraien abere-**epeltasunaz** harresien maldetan, gaua salbatzera. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
epeltasun gozoa (4)

---

epeltxe ik **epelxe**.

---

epeltxo *izond adkor* epela. ik **epelxe**.

Poz **epeltxo** horrekin batera, halako galderak ere etortzen zaizkit burura. Berria - Harian

Epeltxoago Iruñea aldetik: han 6.5raino iritsiak dira dagoeneko. Pello Zabala

---

epeltzaile *izond* epeltzen duena.

Supituki etxea txiki gelditu zitzaion, hiru zabaltasunetara, hiriarenera, ibaiarenera eta zeruarenera irekiriko leihoa bera ere ateska itsu bat iruditu zitzaion, egia da ez zegoela lainorik, baita gaueko hotza freskotasun **epeltzaile** bihurtu zela ere. Jon Alonso

---

epeltze *iz* epel bihurtzea, epel gelditu arte tenperatura berotzea edo hoztea.

Ikerketa askok Lurraren **epeltzearen** ondorioz izotza oso bizkor urtzen ari dela diote, eta horrek itsas mailaren igoera ekar dezakeela. Berria - Gaiak

Afrikako lehorte amaigabeak, India inguruan gertatu diren eurite handiak, Amazonas ibaiaren inguruko lehorte kezkagarria, Australiako klimaren **epeltze** nabarmena, Ameriketako Estatu Batuetako ekaitz tropikal eta urakanak. Berria - Gaiak

---

epeltzearren *adlag* epeltzeko.

Epeltzearren eramaten zuela jendeak maitasuna haietara. Lutxo Egia

---

epelxe *(orobat **epeltxe**) izond adkor* epela. ik **epeltxo**.

Giro **epelxeagoaren** bila etorriko ziren Paueko errugbilariak Donostiara, baina beren esanetan, Biarnon ederki dakite zer den hotzaren lagun izatea, Behar da erran ere, Europan gaindi, sozialixtak lege-nagusi horren alde direla, batzu bero-beroan, besteak **epeltxago**. Berria - Kirola

---

epemuga *(orobat **epe muga** g.er.)* **1** *iz* epearen muga; epea.

Oraingo **epemuga** 2006ko azaroa da. Berria - Harian

Epemuga duten kontratuak truke-tasaren arriskuari aurrea hartzeko. Koro Navarro

Lokalaren etorkizunaz galdetuta, lokalak, dagoeneko **epemuga** jarria duela jakinarazi zuen: martxoaren 9a. Berria - Kultura

Barazkiek **epemuga** gainditutako potekoak behar zuten, bertzenaz ezinezkoa baita horren itxura tristeko mazedonia aurkezterik. Aingeru Epaltza

Agirregomezkortak garrantzia eman zion «**epemuga** eta helburu argiak» ipintzeari normalizazioan abiatzen diren ekimenetan. Berria - Euskal Herria

Sei hilabete **epemuga** egokia zen. Harkaitz Cano

Gobernuaren amnistiak oraindik sasian direnak ere hartuko ditu barne, baldin eta odol deliturik egin gabeak badira eta beren buruak sei hilabeteko **epemugan** entregatzen badituzte. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Iraila iritsita, ordea, berriz abian jarriko dute legebiltzarra, exekutiboa osatzeko **epemuga** berri batekin: azaroaren 24a. Berria - Mundua

2007an Stormonteko legebiltzarrerako hauteskunde «baliagarriak» izan nahi badituzte apirilera arteko «**epemuga** estuan» gogor lan egin beharko dutela. Berria -

Mundua

Ministroek ez zuten **epemuga** zehatzik eman, baina martxoaren bukaerarako Mladic Nazioarteko Justizia Auzitegiaren esku nahi dutela adierazi zioten Belgradi. Berria - Mundua

AIAF errenta finkoaren merkatuan salerosiko dira **epemuga** jakinik gabeko eta interes tasa aldakorreko MFE horiek. Berria - Ekonomia

---

epeño *iz adkor* epe laburra.

Zernahi gisaz, **epeño** bat ardietsia dute ikusteko nolako atera-bidea kausitzen ahal litakeen. Herria

Behar zen auzia aintzina ereman bainan **epeño** bat utziz halere Alfred Sirven-i, bere abokatekin lasai egon zadin. Herria

Biharamunean berean jujatua izaiten ahalko zen bainan berak galdetu du **epeño** bat. Herria

Orduko usaiaren arabera, erregearen erabakia behar zuen ere Bordeleko parlamentuak legestatu nolazpait eta hortako behar zen **epeño** bat. Herria

---

epentesi *iz* hitz baten barnean fonema bat gehitzea, eskuarki ahoskatzea errazteko.

Etimologia kontuetan, protesia, paragogea eta **epentesia** ditugu, hurrenez hurren, fenomeno hauen izen espezifikoak, eta zilegi bekigu geurean ere erabiltzea. Iñaki Arranz

Hitzaren barnean eransten da letra edo fonema **epentesiaren** kasuan. Idazleen ekarpenak ildo beretik doaz, eta ez dira falta **epentesiaren** bidez kontrajarritako hitzak eta ideiak: [...]. Iñaki Arranz

Epentesiari eskerrak, noski, beregaindu diren kontsonante biak hobeto hautematen dira. Lourdes Oñederra

Hau da, oihartzun luzatuari zegokionez **epentesia** deitzen genuena apokopea deituko dugu errepikapenak hitza laburtzen duenean. Iñaki Arranz

---

eper **1** *iz* faisaiaren familiako hegaztia, lepo-motza, moko- eta zango-gorria, hegaldi motzekoa*(Alectoris* eta *Perdix* sp).

Goizuetako larretan, kantua aditu bai, noiz behinka, baina, bertatik bertara sekulan ez nuen **eperrik** ikusteko aukerarik izan. Patziku Perurena

Haurra modu guztietara saiatu zen **eperra** harrapatzen. Juan Kruz Igerabide

Eperrak, Satan zaharra gorpuzten du, bere ahots nabarrarekin jendea liluratuz. Patziku Perurena

Betidanik xoratu izandu nau, urrungo mendi mazeletik **eperraren** ttor-ttor-ttor hirutar hori aditzeak, eta zer esanik ez, haren belar tarteko ibilera isilgordeak. Patziku Perurena

Neguan, faisaien purpuran ere etzaten ziren, bai eta hegatxabalen errauts grisean, eta **eper**, galeper eta birigarroen zeta pintarratuan ere. Karlos Zabala

Zakurrak **eperra** usnatzen zuenean, ardiak ahanzten zituen. Itxaro Borda

Behin hortzetan **eper** bat zuela azaldu zen katu haietako bat. Josu Zabaleta

Gero pista galdu nion, sasian **eperrari** pista galtzen zaion bezala. Jon Alonso

Ehiztaria mendiz mendi **eperraren** atzetik bezala. Elizen arteko biblia

Eperraren hegatsean topatutako perdigoiak bezala. Itziar Otegi

Jean Chevalierek gauza bera dio, **eperraren** kantu nabarra Europa zaharrean eta Txinan ere, zorigaitzaren adierazletzat jotzen zela, nahiz batzutan amodioaren salatari izan. Patziku Perurena

Baliteke egun osoan bi erbi eta bost **eper** garraiatu behar izatea. Itziar Otegi

Irudi bat oroitu nuen: **eperrak**, beste **eper** batzuk erakartzeko eta ehizatzeko erabiltzen direnak. Juan Kruz Igerabide

Hauek jatekoak eta biandak zekartzaten orgetan eta gurdietan festa egunerako -arkumeak eta oreinak, urdeak eta basurde ehizatu berri bat, oilaskoak eta faisaiak, usoak eta **eperrak**-. Joan Mari Irigoien

Espartan, Lazedemonian, iloten ehizara joaten ziren, gu Frantzian **eperretara** bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eper mototxuriek, lurra mokoka bahetzen duten oilagorrek eta pasaerako beste hegazti batzuek zeharkatzen dituzte aireak. Koldo Biguri

Ur xirripen ondoko arratoiak ditu harrapatuko; berdin harkaitzen arteko erbia edo mendiko **eper** zango gorria. Filipe Bidart

Erbi gorri handiak, **eper** pintarratuak. Ez al dakik ezen ahalkegabeak jaten dituela azkenean **eper** erreak, eta ahalkorrak ogi-mokorrak? Karlos Zabala

Zeren eta mahai gainerat bere puntuan zegoen **eper** gaztea ekarri baitzidaten. Joan Mari Irigoien

Aurreko **eper** lumagalduak adierazten duen desondra berbera adierazten dizu ondoko uso kolpatu honek: [...]. Patziku Perurena

Senide edo lagun arteko otordu batean, hasi edozein gairi buruz hizketan eta, ttapa! hor aterako zaizu **eper** modernoa: [...]. Patziku Perurena

Oherakoan, berriz, **eperra** baino eleontziago aritu zitzaidan Matti. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan)

Hitzaren atzean ari garelako usnaka ari diren **eper**-zakurrak baikinen. Jon Alonso

Argeliako kabiliar herrietako sinbologian ere [...] **eper** pusketa bat jateak, maitasun poxi batez jabetzea esan nahi du. Patziku Perurena

· Dagoeneko aranondoak badoaz fruituz zamatzen, eta elurrak kaskoak estaltzen dituenean agertuko da erbinude zu ria, eta elur-**eperra**. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eder eper (3); **eper bat** (7); **eper baten** (3); **eper bizia** (3); **eper euskadi** (4); **eper zango** (7); **eper zango gorria** (4); **eta eper** (4); **eta eperrak** (3)

---

eperdi ik **ipurdi**.

---

eperki *iz* eperraren haragia.

Zeren eta mahai gainerat bere puntuan zegoen eper gaztea ekarri baitzidaten, eta nik ederki profitatu behar nuen **eperkia**, hezurrik tipienak ere xurgatu, lamikatu eta garbi utz arteino Joan Mari Irigoien

---

eperzale *izond* eperren zalea dena.

Azken denda **eperzaleen** bilgune zen, txori hori baitzen gure mendietako ugariena, gure herriaren sinboloa. Juan Kruz Igerabide

---

epidemia *(**24** agerraldi, **13** liburu eta **3** artikulutan; ETCn **1.085** agerraldi)* **1** *iz* lurralde eta denbora berean biztanleen zati handi bati erasotzen dion eritasun kutsakor oro, eta eskuarki Yersin-en baziloak eraginikoa. ik **izurri; izurrite**.

Epidemia bat izan duk duela gutxi, eta, Jainkoari eskerrak, nekazari asko hil dituk. Jose Morales

Une honetan dagoen arriskurik handiena **epidemiak** sortzea da. Berria - Mundua

Dena ondo joanez gero, tifusik, disenteriarik edo bestelako **epidemiarik** gure artean piztu ezean, laster, ziurtatu zigutenez, leku atseginagoren batera joango ei ginen. Urtzi Urrutikoetxea

Putzuetan gelditu den urak **epidemiak** zabaltzeko arriskua piztu duela ohartarazi zuen erakundeak. Berria - Mundua

Lagunekin geratu dela, eta alde egiten du, **epidemiaren** bat hartzeko beldurrez bezala. Alberto Barandiaren

Lurralde horietan **epidemiak** 20 milioi pertsona hil ditu, jada. Berria - Gaiak

"Polioa harrapatu al du? Aitari entzun diot **epidemia** moduko bat dagoela Donostian", esan zuen Susanak. Bernardo Atxaga

Autismoa **epidemia** moduko bat bihurtuko da; ez kutsatu egiten delako, orain artean azaldu ez diren hainbat kasu azalduko direlako eta gizartea ezustean harrapatuko dutelako baizik. Berria - Euskal Herria

Nahigabeak, jakingo duk noski, ez dituk etortzen lauoinkako zalapartan, hunoen zalduneria bezala, baizik eta isilka, itzalgaizka, **epidemiak** bezala. Juan Garzia

2 (izenondoekin)

Gerla baten ondotik, bakea izenpetzean, galtzen duenak zer edo zer irabazi nahi du eta hor dira gatazka-hoziak beren kuskuetan gogortzen, egoera hobeago datekenean **epidemia** sukartsu baten antzera zartatzeko. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zabaltzen hasia zen gripe **epidemiari** leporatu zion ustekabeko indargabetze hura. Patxi Iturritegi

Hango higiene egoera negargarriaren ondorioz, tifus **epidemia** bat izan zen; milaka espetxeratu hil ziren. Josu Zabaleta

Beraz, apaiz batentzat aukera bikaina duk kolera-**epidemia** baten, lurrikara baten edo gerra baten erdian egotea. Koldo Biguri

Barruan, hazteria **epidemia** bat hedatzen ari da. Pablo Sastre

Ea probintzia hartan bazegoen gaitzen bat zabaldurik, hala nola sukar-**epidemiaren** bat, edonolako sukar hilgarririk, nafarreria edo bestelako eritasunik. Jose Morales

Zergatik ez da izandu sekulan osasun **epidemiarik**? Patziku Perurena

Bere ustez, garai bateko psikosi kolektiboak, flagelazioa eta dantza-**epidemia** bitxiak, haxixaren edo antzeko narkotiko baten gehiegizko kontsumoak eragin zituen. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
epidemia bat (3)

---

epidemiologia 1 *iz* epidemien azterketa.

Ezin da gauza handirik egin **epidemiologia** aldetik, baina heriotzak hautematea zaila izateak ez du esan nahi ez daudela hor. Berria - Harian

Aberastasunen azterketan, ekonomia politikoan, garai bateko "gorpuzkeren" medikuntzan eta egungo **epidemiologian**). Xabier Arregi

Donostia Ospitaleko Laborategi Bateratuak eta **Epidemiologia** Klinikoaren Unitateak. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **epidemiologiko**.

Epidemiologia azterketa handia egin dugu landa eremuetan, Hanoitik ipar mendebaldera. Berria - Gaiak

Hondamendietako **Epidemiologia** Ikerketetarako Nazioarteko Zentroaren arabera, berriz, azken 30 urteotan hondamendi naturalek eragindako hildako kopurua murriztu den arren, kalte materialak ugaritu egin dira. Berria - Gaiak

Gaitzari aurre egiteko egin diren urratsetan, besteak beste, Osakidetzako **epidemiologia** saileko teknikariak aritu dira lanean. Berria - Euskal Herria

Italiako Ingurumenaren **Epidemiologia** Saileko buruari kontsulta batzuk egin eta, hark emandako erantzunak ezkutatu izana egotzi dio plataformak errauste plantaren egitasmoa aurrera atera behar duen enpresako gerenteari. Berria - Euskal Herria

Espainiako **Epidemiologia** Zentroak iazko udan izan genuen bero-boladak izan zituen ondorioak aztertu ditu txosten batean. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etorkinen Osasun eta Gizarte **Epidemiologiari** buruzko nazioarteko jardunaldietan. Berria - Euskal Herria

---

epidemiologiko *izond* epidemiologiarena, epidemiologiari dagokiona. ik **epidemiologia 2**.

Lehenbiziko kasuaren berri iragan ostiralean izan zuen Osasun Sailak, eta zaintza **epidemiologikoaren** protokoloa martxan jarri zuen. Berria - Euskal Herria

Beraz, seinalea hautemateko sekulako ikerketa **epidemiologiko** handiak egin behar dituzu, ehunka mila pertsona denbora luzez kontrolatuta, eta hori oso garestia da, lan itzela. Berria - Harian

Alderdi politikoei eskaera egingo diete Osakidetzari zonako ikerlan **epidemiologikoa** egin dezala eskatzeko. Berria - Euskal Herria

Plataformak Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioei proposatuko die Eusko Jaurlaritzari eskatzeko zentralaren inguruko aldean azterketa **epidemiologikoa** egiteko. Berria - Euskal Herria

Laborategietako esperimentuen protokoloak, kalkulu estatistikoak, egiaztapen **epidemiologikoak** edo demografikoak. Xabier Arregi

Txosten **epidemiologikoen** beharra azpimarratu du Templierrek gabezien artean. Berria - Harian

Azken bolada honetako aldaketa teknologiko, **epidemiologiko** eta sozio-kulturalen ondorioz. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
azterketa epidemiologikoa (3)

---

epidemiologo *iz* epidemiologian aditua den pertsona.

Karen stanecki, NBE-ren Hies programako **epidemiologoa**. Berria - Harian

Anna Thorson **epidemiologoa** da Stockholmeko (Suedia) Karolinska Institutuan. Berria - Gaiak

Izurriteotako batzuk oraindik hasierako urratsetan daude, **epidemiologoaren** arabera. Eneko Bidegain

Pandemia beldur horiek gainetik kentzeko eta gaixotasuna nola kutsatzen den jakiteko, **epidemiologo** onen falta sumatzen duela nabarmendu zuen. Berria - Harian

Gazte Sozialistetako kide izana, zirujau, pediatra eta **epidemiologo** aritu da. Berria - Harian

---

epidermiko *izond* azalekoa, sakontasunik gabea.

Eskuinaren jardunak eta hizkerak higuin fisiologiko bat sortzen didate, haiekin bat egitea eragozten didan arbuio ia **epidermikoa**. Xabier Mendiguren Elizegi

-Iharduki **epidermikoa** eta kolerikoa duzue! Itxaro Borda

---

epidermis *iz* animalien larruaren azaleko geruza. ik **larruazal**.

Guk larruazal esaten diogun hori kanpoko geruza besterik ez da, teknikoki **epidermis** deritzona. Irene Aldasoro

Zelula bizi bakunez eratutako geruza gutxi batzuk osatzen dute **epidermisa**. Irene Aldasoro

Folikulu ugari ditu larruazalak, **epidermisean** hasi eta handik behera dermisera iristen direnak. Irene Aldasoro

Azal puska txiki horiek kanpoko **epidermisa** eta dermisaren zati bat hartzen dute. Berria - Gaiak

Garatu ahala, kanporantz mugitzen dira **epidermiseko** zelulak, eta hil eta kanpoko geruza gogorra eratzen dute. Irene Aldasoro

Marmoken ziztadak **epidermisaren** narritadura eragin dezake. Berria - Gaiak

Erradiazioa jarraitua bada, berriz, oreka normalari eusteko baino bizkorrago desegiten dira **epidermisaren** geruza basaleko zelulak. Irene Aldasoro

---

epidiktiko *izond* literatura generoez mintzatuz, pertsona baten laudorioa edo gaitzespena duena gaitzat.

Jakina den bezala, hiru erretorika-genero bereizten dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuaren eta bideratu behar den persuasio motaren araberakoak: judiziala, deliberatiboa eta **epidiktikoa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Genero **epidiktikoa** da arte literarioaren baliabide guztiak aktibatzen dituen bakarra, entzuleriarekiko atxikimendua lortzea izaki xede nagusia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Publizitatea, gure garaiko diskurtsorik eraginkorrena, behar bezala ulertzeko, berriz, hor daukagu erretorikaren genero **epidiktikoa**, nire aburuz Aristotelesen ekarpenik emankorrena izan litekeena gure garairako. Joxerra Garzia

Erretorika **epidiktikoa** ulertu nahi bada, onena da kontsideratzea **epidiktikoa** dela entzuleriaren jokabidean eragiteko xede zuzenik ez duen genero erretorikoa, entzuleriaren balioetan eta usteetan eragitea beste xederik ez duen generoa, alegia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beharrezkoa baita doktrina teorikoa bat-bateko bertsolaritzaren bereizgarrietara egokitzea, beste jarduera erretoriko **epidiktiko** batzuk ez bezala, bat-batekoan inprobisatzen den genero kantatua baita. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

epidural *izond* kanpo meningearen gainean kokatua.

Arteria meningica media-ren lesioa, hots, hematoma **epidurala** omen deritzana. Joxe Austin Arrieta

2 gune epiduralari dagokiona.

1995. urtetik 2002ra arte nabarmen igo da erditzean anestesia **epidurala** erabiltzen duten emakumeen kopurua: %120. Berria - Euskal Herria

Anestesia **epiduralarekin** egiten da, eta «oso da teknika sinplea», Madinaren esanetan: «Ile baten lodierako zuntz bat sartzen da zakiletik, eta uretra zulatu eta prostatara iristen da. Berria - Gaiak

3 (izen gisa) gune epiduralean ezartzen den anestesia.

Epidurala aplikatzeko, ez da utero lepoa dilatatu arte zain egon behar. Berria - Gaiak

Gure lehengusina Juliak hiru egin zituen segidan, plaust, plaust eta plaust, ez **epiduralik** ez ezer. Patxi Iturritegi

Baina garaiak izugarri aldatu dira: **epiduralarekin**, akabo samina. Iban Zaldua

Epidurala goizegi hartzea arriskutsua izan zitekeela uste zuten askok. Berria - Gaiak

---

epifania **1** *iz* urtarrilaren 6an ospatzen den festaburua, Erregeen gurpena gogoratzen dena.

Mendekoste zortziurrenetik Abendua arte eta **Epifania** zortziurrenetik Pizturaera igandea arte. Askoren artean

Epifaniako zortziurrena arte. Askoren artean

Epifania ondoko hirugarren igandea. Pello Salaburu

Epifanian hasi eta hurrengo berrogei egunetako garizuma santuan. Askoren artean

Epifania ondoko seigarren igandea. Anjel Lertxundi

Urtea bukatzerakoan baditugu egun batzu pozgarriak, hala nola Eguberri, Urte berri eta Errege edo **Epifania** egunak. Herria

2 agerkundea, adierazpena.

Urteetan zehar itxarondako **epifaniaren** zain zegoen, eta halako batean Jaime Sobrino bere aurrean hezurmamitu zen ziplo. Iban Zaldua

Haurrak -Hynkel txikiak- harri eta zur begiratzen dio Hans Breveski mutikoari, bere besoa altxatuta daramalarik, eta etorkizuneko **epifania** bat ikusten duela ohartzen gara, horixe baita agur-naziaren sorburua izanen dena. Harkaitz Cano

Haatik, ezinaren joanean, **epifania** antzematen daki Joycek, hots, egoera eta gertaera arruntean ezusteko egia, betikoan sagaratua. Markos Zapiain

Epifania joycetarra da. Berria - Kultura

Euskal ezaugarrien **epifania** eman nahi zaigu garo-usaina darion eszena bukoliko horren bidez. Anjel Lertxundi

Bota ditzagun begiak erlijio nagusien **epifaniek** mundura ekarritako argitzapen espiritualen gain. Iñaki Mendiguren

Gizarte Babilonikoak Siriakoan izandako eragin militarrak judaismoaren eta zoroastrismoaren **epifania** sortarazi zuen. Iñaki Mendiguren

Eliza krisalidatzat hartu badugu, berorren bidez zibilizazio batek beste bat sortzen duelarik, orain zibilizazio sortzailea eliza baten **epifaniaren** oberturatzat hartu behar dugu, eta zibilizazio filiala goragoko mailako lorpen espiritual horrekiko atzerakadatzat. Iñaki Mendiguren

Aro Heroikoa, berez, aldi iragankorra baldin bada, bere etorreraren eta atzerakadaren seinalerik ziurrenak bere berariazko idealen **epifania** eta eklipsea dira. Iñaki Mendiguren

Eta diamante hau, oi, kresala da, gatzaren **epifania**. Karlos Linazasoro

Ezinaren **Epifania**. Markos Zapiain

---

epifaniko *izond* epifaniarena, epifaniari dagokiona.

Banbararren pasarte **epifaniko** batek honela dio. Patziku Perurena

---

epifisi *iz* hezur luze baten buru zabaldua.

Horrela, bada, hazkuntza ez da hezurraren buruan gertatzen (**epifisi** delakoan), tarteko kartilagozko geruzan baizik. Irene Aldasoro

Hezurra guztiz osatzen denean, bat egiten dute **epifisiak** eta hezur-makilak. Irene Aldasoro

Gorputzeko beste hezur batzuen kasuan, adin ertainean batzen dira **epifisiak**. Irene Aldasoro

---

epigenesi *iz* ernamuin zelula baten garapena, mailakako dibertsifikazioaren ondoriozkoa. • *irud/hed*

Bigarren bidea besterik ez da geratzen (arrazoimen hutsaren **epigenesiaren** sistema, nolabait esateko), hots, kategoriek adimenaren aldetik oro harrezko esperientzia ororen ahalgarritasunaren oinarriak barnebiltzen dituztela. Ibon Uribarri

---

epigenetiko *izond* epigenesiarena, epigenesiari dagokiona.

Hortaz, herentzia geneetan transmititzen dena baino askoz zabalagoa da, eta faktore **epigenetikoek** eragin handia dute. Askoren artean

---

epigono *iz* aurreko estilo edo eskola bateko maisu edo artista baten jarraitzailea.

Higikunde erromantikoko bigarren mailako **epigonotzat** hartu dute adituek Poe; fikziozko lanetan, eleberrigile gotikoen ondorengotzat, eta Byron eta Shelleyren jarraitzailetzat bertsozkoetan. Koro Navarro

Nekez uxatuko luke orduan plajiatzaile edo -kasurik hoberenean- **epigonoaren** fama txarra. Bernardo Atxaga

Freskoagoa egiten zaigu Txirritaren estiloa, modernoagoa kasik, Lizardiren **epigonoa** izan nahiko zukeen Mendizabalena baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Zinemagile gisa, «joana den garai bateko **epigono**» sentitzen da Erize. Berria - Kultura

Gôià horri, gôià peto-petoa izan arren, Magna Ausilia esaten baitzioten, nolabaiteko onarpen gradua adierazten du horrek **epigonoen** aldetik. Juan Garzia

Nire bihotza seinalatu zuen gero makuluaren puntaz, eta beste hizketa-saio luze bati ekin zion berriro, Ahasverus zapatari juduaren, eta Lakedem, Mateo Txistu edo Buttadeo bezalako **epigonoen** kondenak etorri omen zitzaizkion-eta gogora. Anjel Lertxundi

Italia kolonialismoaren **epigono** gisa jokatzen hasi zen -ia historiatik kanpo balebil bezala-, Grezia, Libia, Egipto edo Abisinia konkistatzeko ahalegin eroan. Anjel Lertxundi

Garai baten **epigono** izatea, horra D'Annunzioren tragedia. Anjel Lertxundi

Hara beste seinale bat ikusteko gurean zein diren benetako transgresoreak, eta zein, ortodoxian eta territorio komunetan gozo-gozo jarririk, matxinada probable, zintzo eta onargarrietan ari diren **epigonoak**. Berria - Kultura

---

epigrafe *(orobat **epigrafo** g.er.) iz* idazki baten edukiaren izenburu edo adirazpena.

Lau "argumentu" edo **epigrafe** zituen hasieran, lehena Nietzscheren Zaratustrarena, bigarrena Kristorena. Joseba Zulaika

Bereziki garrantzitsua da, alde horretatik, II. liburuko 8. kapitulua, zeinetan, "hormak eraikitzeko erak" **epigrafean** bipilki esaten baitu era horiek bi direla. II. ataleko 2. **epigrafean** ikusi dugun bezala, urrun daude arketipoetatik bertsolariek egun landu behar dituzten gaiak edo paperak. Santiago Iruretagoiena

Jarraian, koadrotxo batean, **epigrafe** modura, Hollywoodeko zuzendari baten adierazpenak datoz: [...]. Bi argitaraldi izan ditu liburu horrek orain arte; bigarrenak Leibniz-en harako aholkua dakar **epigrafetzat**: [...]. Patxi Iturritegi

Aurreko **epigrafean** ikusi dugun bezala, ahozkotasunaren teoriaren izaera murriztaileak galarazi egiten digu ahozko jardunak idatzizko generoetan duen eragina ikustea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ricardo Pigliaren liburu hasierako **epigrafeak** gaztigatzen duenez, deliberatuki etorkizunean kokatzen diren istorioek orainaz argi eta garbi hitz egiteko balio dute. Berria - Kultura

Obra honetan azaldutako guztia eduki dugu gogoan oroimenari buruzko **epigrafe** honetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aurreko epigrafean (4); **epigrafean ikusi** (3); **epigrafean ikusi dugun** (3)

---

epigrafetxo *iz* epigrafe laburra.

Gehiago zehazterik ez dugunez, balio beza aurreko **epigrafetxoan** saioetako eszenografiari buruz adierazitakoak, bat-bateko bertsolaritzaren telebista-tratamendu egoki bati begira kontsideratu behar liratekeen kontuen orientabidetzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

epigrafiko *iz* idazkunei, eskuarki antzinakoei, dagokiena.

Latin klasikoko *hun, hanc, hac* forma sinpleak, *-honc-ce, han-ce, ha-ce* formetatik datozenak, forma **epigrafikoek** erakusten diguten legez-, izenordain bat eta ce partikularen aglutinazioaren ondorio dira. Isabel Arrigain

---

epigrafikoki *adlag* era epigrafikoan.

Historiak frogatzen ahal badu elementu soil bat lehen bi osagai edo gehiagoz osatua zegoela, orduan aglutinazio kasu baten aurrean aurkitzen gara, latinezko *hunc*, adibidez, *hom ce*-tik datorrena (horretako *ce* hori **epigrafikoki** dago adierazia). Isabel Arrigain

---

epigrafo ik **epigrafe**.

---

epigrama *iz* poema satiriko laburra; esaldi edo adierazpen laburra, eskuarki satirikoa.

Epigrama [...]: hitz lauzko nahiz neurtuzko ateraldi zorrotza, maiz garraztasun edo mikaztasuna eta batzuetan jakinduria ezaugarritzat izaten dituena. Xabier Olarra

Lan horretan, poema laburrak jaso ditu Markuletak, **epigramen** edo haiku-en modukoak, umorez, ironiaz beterikoak. Berria - Kultura

Behiala, gazte eta berde nintzela, nere bihotzeko izuen gordelekutik atereran, **epigrama** xoragarri hauxe aditu nuen: Neskatila itsuaren / zurezko begiak dira/ deusezetara begira / begirik ederrenak. Patziku Perurena

Literaturan bezainbeste arrazoibideetan, **epigrama** da onespen errazena eta zabalena duen generoa. Koro Navarro

Sutauts Miltonen latinezko *In Inventorum Bombardae* **epigramaren** zehar-aipamena. Xabier Olarra

2 (izenondoekin)

Begitan zeuzkan zerbitzuan aurrea hartu zioten guztiak, garratz hitz egiten zuen haiei buruz eta **epigrama** gaizto eta mingarriak idazten zizkien. Jose Morales

Kabiar sandwich batek zein egoera igarotzen dituen hurrenez hurren fantasia bihurtu eta **epigrama** eztendun bezala berragertzeko. Xabier Olarra

Epigrama disekatua. Xabier Olarra

Martzialek ere aipatzen ditu Marteren tenplu ondoko larruak, baina haren ustez Erromaren beraren aspaldiko ustel usaina zerien, eta ez besterik, **epigrama** maltzur batean idatzita utzi zuenez. Iban Zaldua

---

epika *iz* poesia epikoa literatura motatzat hartua.

Norbaiten ahotik ateratako kontuak askotan entzuten direnean, azkenerako ez da jakiten **epika** non bukatzen den eta non hasten den lirika. Xabier Etxabe

Berdin dio tragedia, komedia, satira, **epika**, alegoria... edota diskurtso politiko bat. Txema Ramirez de la Piscina

Umoreak, izan ere, bizitzari buruzko beste ikuspuntu bat dakar: mugagabea dirudienari bere mugak ezartzen dizkio, **epika** lirika bihurtuz, eta gizonen balentriak, jainkoak eta

ideiarik gorenak [...] irriaren esparru horizontalera ekarriz. Joan Mari Irigoien

Odola ura adina behar duen kazetaritzaz ari naiz, **epika** etika baino nahiago duen kazetaritzaz. Berria - Euskal Herria

Esana dut lehenago ere ez dudala **epikarik** egin nahi; beraz, ez naiz hasiko jasotzen Txikiaren militante-bizitzako pasadizo zirraragarrienak, espioi-film batetik atereak diruditenak: ekintzak, tiroketak, segadak, ihesak... Xabier Mendiguren Elizegi

Hirurogei urte epopeiatik **epikara**. Berria - Kultura

Ahozko poetika ere ez ote da, Homeroren **epikari** aplikatzen zaionean, Prokustoren ohe txikiaren tankerakoa? J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez da kasualitatea Döblinek **epika** moderno baten beharra aldarrikatu izana, ez eta bere Berlin, Alexanderplaz obra epikotzat jo izana ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahots goraz esatekoa den **epika** handia baino, zurrumurruka kontatzen den **epika** txiki hori da nire egia. Ana Urkiza

Ni, heriotza heroikorako adorea besterik ez neukan koldar hau, harro eta beldurbako hil nintzela kantatuko zukeen nire herriaren **epika** xumeak. Koldo Izagirre

Hesiodo izan zitekeen lehenengoa, baina inola ere ez azkena, **epika** barbaroaren distirak liluratutakoen artean. Iñaki Mendiguren

Ahozko **epikak** ere badaki, Homeroren berdin gabeko mailakoa denean behintzat, ustez poesia idatziari soilik dagozkion bitxi bikainak ematen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure artean ere aspalditik goretsi izan den "euskaldun hitzez labur eta egitez luze" haren ereduari ezin hobeto legokiokeen prosa moldea, Orixez geroztik ere **epika** mota batean jarraitzaile bat baino gehiago izan duena. Josu Zabaleta

Saio guztiak, esperantza guztiak, ispilukeria guztiak, behin eta berriz apurtzen eta zirtzilatzen dira kalexka hauen egunerokotasunaren, ezdeusaren, **epika** faltaren kontra. Iñaki Iñurrieta

Horra **epika** zipitzik ere nahi ez duten hipiko modernoak. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
den epika (4); **epika bat** (3); **epikarik egin nahi** (3); **eta epika** (3)

---

epiklesi *iz* apaizak sagaran esaten duen otoitza, zeinaren bidez eskatzen baitu ogia eta ardoa Kristoren gorputz eta odol bihur daitezen.

Berak egia soila esan nahi zuen, ondo ezagutzen zituen gorabeherak kontatu: beraren bizitzakoak, familiakoak, auzoenak, lagunenak... eta, horiek oinarri harturik, apaizak kontsagrazioan **epiklesi** otoitzaren bidez egiten duen bezala, "eguneroko ogia bizi artistiko iraunkorra duen zerbait bihurtu, eta jendeari halako plazer intelektual edo atsegin espiritual bat eman". Hamar **epiklesiz** osaturiko sail bat idazten ari naiz aldizkari baterako. Irene Aldasoro

---

epiko **1** *izond* epopeiari dagozkion egitandiak kontatzen dituena; epikari dagokiona.

Han azpimarratu ditugu gerra-talde horien lorpen bereizgarriak erlijio sektarioaren eta poesia **epikoaren** arloetan. Iñaki Mendiguren

Barbarotasun garaileak sortutako poesia **epikoaren** distirak engainatu egin zuen Hesiodo. Iñaki Mendiguren

Longfellowek berak ere *Kalevala* suomiar poema **epiko** nazionala hartu zuen eredu. Xabier Olarra

Greziako poema **epikoetan** bezala hiru heroiren gatazkara soilduko bagenu Poitiersko borrokaldia, eta bakoitzaren portaeraren azterketa egingo bagenu, lehenengo Abd al-Rahman ibn abd Allah al-Gafiqiri begiratuko genioke. J.M. Olaizola "Txiliku"

Historio **epiko** horrek marraztu bidean dabiltza errames fededun eta fedegabeak, kirolari eta poetak, jende handi eta xeheak. Piarres Aintziart

Gure literatura **epikoak** erakusten duenez, batik bat zorigaitza gainean daraman zaldi berezia baitugu "lau oinetan zuri" deneko hori. Patziku Perurena

Hegazkin gidarien arteko bizimoduaren balio idealizatuak, egitate **epikoak** aletzen dira kontaketaren haria markatzen duen hegaldia aurrera doan ahala. Josu Zabaleta

Kantuan hasiko da eta bere edukiak modu poetikoan, dramatikoan, **epikoan** ... adierazten ahaleginduko da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Militar-leinukoa zen, eta bere zaharragoen destino **epikoaren** nostalgia sentitu zuen. Juan Garzia

Ortega-ren tonu **epiko** inperial eta erretorika martzialak aztertzaile literario baten gozamena egin lezake. Joxe Azurmendi

Aipaturiko 2.775 doinu horietan, batzuk badira sentimendu **epiko** indartsuak adierazteko egokiak; beste batzuk sentimendu dramatikoak adierazteko dira pare-parekoak; kontaerarako egokiak direnak badira; eta baita deskripziorako aukera ematen dutenak ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aro heroiko postminoikoaren ondare **epikoan**. Iñaki Mendiguren

Hari begira geratu da luze, gogoa Urbano Lugris lagunarekin egon zen azken arratsaldera joana, hark amaitzeko puntuan zeukan koadro **epiko** ederrera. Paddy Rekalde

Poeta **epikoak** honela laburbildu zuen biltzarretan gailentzen ziren hizlari arrakastatsuen profila: [...]. Txema Ramirez de la Piscina

Holger Dansk Danimarkako heroi **epikoak** borroka egin zuen Orreagan mairuen aurka. Martin Anso

Literaturak eta zinemak -ohi duten era melodramatikoekin- oso izaera mugatuko heroiak jarri dizkigute begien aurrean: garaile **epikoak** eta galtzaile samurrak, batik bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 irud/hed

Txominen hitz **epikoak** errepikatzeko. Gorroto sakon bat zen, sentitzen duenari baretasuna ematen dioten horietakoa, mespretxu **epiko**, harro bat. Piarres Aintziart

Gorputza tenple **epiko** halako batez sentitu behar dut laurehun orrialdetik gorako eleberri baten kontatzen zaizkidan ibilerei ekiteko... Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Garesti aterako zaie beren asmo **epiko**-poetikoa. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
olerki epiko (3); **poema epiko** (8); **poema epiko bat** (3); **poema epikoak** (3); **poesia epikoaren** (4)

---

epikoki *adlag* modu epikoan.

Bigarrena baduzu, ordea, nolatan bizi zeure zera **epikoki**, nolatan bihurtu zeure burua istorio bateko protagonista, aldez aurretik jadanik sinesmen zipitzik ez baduzu istorio horretan jartzen? Iñaki Iñurrieta

Etxetik irtenda goizero agurtzen duzun jendea da aberria, ez zuk gogoan duzun errekortea, aberriaren alde **epikoki** hiltzeko zure ipuin xelebre horrekin. Joseba Sarrionandia

---

epikotasun *iz* epikoa denaren nolakotasuna.

Itsutasunari **epikotasuna** falta zaio, esan du, muturra okertuz. Lander Garro

Istorioetan ez dago **epikotasunik**; eguneroko errealitatetik erauzitakoak dirudite. Berria - Kultura

Horra bake aldietarako **epikotasuna**. Iñigo Aranbarri

Batzuetan rock progresiboari egiten dio keinu, beste batzuetan post-rockaren bidea jarraitu nahi duela iduri du, garapen luzeko intentsitatea bilatuz, eta gehienetan

epikotasuna gailentzen zaio minimalismoari. Berria - Kultura

Gure historia garaikidea baldintzatu duten gertakari eta pertsonaia ezagunen inguruan antolatzen den suspense narratiboak [...] horixe bilatzen baitu: **epikotasun** oro baztertu eta narrazio hanpatu heroikoak deuseztatzea. Berria - Kultura

Tradizioaren zaporea duten testuak eratzen ditu, eta erdibidean dago Indiako **epikotasun** klasikoaren eta bidelapur zintzoei buruzko narrazio erromantikoen artean. Fernando Rey

---

epikureanismo ik **epikureismo**.

---

epikurear ik **epikurotar**.

---

epikureismo *(orobat **epikureanismo** g.er) iz* Epikurok K.a._IV mende bukaeran sortu zuen filosofia doktrina, ongi handiena plazerra dela dioena; plazerra soilik bilatzeko jokaera.

Epikureismoarentzat onik handiena plazerra zen. Xabier Olarra

Lukrezio baino lehentxoago, Amafiniok plazerraren moralean esentzialki oinarrituriko **epikureismo** bat predikatu zuen, berehalako desiraren gauzatze gisan ulertua, eta, sexuala bada, hobe. Xabier Amuriza

Eztabaidatzen da ea Lukrezioren **epikureismoa**, gainera eta hargatik guztiagatik, elite batentzako **epikureismoa** izango ote zen ala mundu guztiarentzako **epikureismoa**. Xabier Amuriza

Nahikoa litzateke pentsatzea Lukreziok nahiago izan duela **epikureismoaren** alde mintzatuko direnen eskuetan arma kontzeptual sendoak ipintzea, sendotzen hasiak zeuden (estoikoak, platonikoak eta aristotelikoak) bere garaiko inpugnatzaileen aurka borrokatzeko. Xabier Amuriza

Honegatik kontrajartzen zaio **epikureismoa** platonismoari. Ibon Uribarri

Zizeronek **epikureismo** hauxe dauka gogoan, halako indarrez erasotzen dionean, Erroman ere zer hedaturik zegoen ikustean. Xabier Amuriza

Lukreziorengan ez dugu, ordea, halako ezer ikusten, **epikureismo** metafisikoa baizik, non bere ikuskeraren [...] oinarri ontologikoak azaltzen diren. Xabier Amuriza

Denek ezaguna dute Horazioren **epikureismo** profesoa. Xabier Amuriza

---

epikureo **1** *izond/iz* Epikurori edo epikureismoari dagokiona; epikureismoaren jarraitzailea. ik**epikurotar**.

Zenbait filosofo **epikureo** eta estoikok ere jardun ohi zuen harekin eztabaidan. Elizen arteko biblia

Demagun **epikureo** batek dioela: Ez daukat sentimenen aurka inongo kexurik, ez baita arrazoizkoa haiei eskatzea ahal dutena baino gehiago. Imanol Unzurrunzaga

Hala nola, **epikureotan** sinesten duenak, arima hilkorra dela sinetsita, espirituaren arloetan barneratzeko gai den norbaiten aurrean jakintsuek arimaren betikotasunaren alde esplikatzen dituzten argumentuak azaltzen dituenean; entzuleak pentsatuko du **epikureoak** egia esaten diola; **epikureoak** berak, ordea, ez daki esaten duena egia ote den, oso faltsutzat hartuko du, ziurrenik ere. Imanol Unzurrunzaga

Beste batzuek beretzat gorde zuten jarauntsia, eta P. Sextilio Ruforen etsenplua ere ospetsu egin zen, Zizeronek **epikureoen** kontrako eztabaidetan darabilelako. Iñaki Iñurrieta

2 plazerra baino bilatzen ez duena.

Nik esan ohi nion kristauak epe luzeko hedonistak zirela, **epikureo** hutsak, munduko plazerrei uko egiten zietenak gero paradisu askoz atsegingarriagoa eskuratze aldera. Xabier Mendiguren Elizegi

Funtzionario bat sartu zen: Samosvistov, gizon **epikureoa** bera, ausarta, adiskide bikaina, festazalea eta, lagunek berek esaten zutenez, alproja petoa. Jose Morales

---

epikureotar ik **epikurotar**.

---

epikuroar ik **epikurotar**.

---

epikurotar *(orobat **epikurear**, **epikureotar** eta **epikuroar**) izlag/iz* epikureoa.

Berak, idazle gisan, **epikurotar** doktrinaren maisu hauei hitz egingo zien, hauek, halaber, publiko zabalagoari hitz egin ziezaioten; baina berez doktrinaren xedea ez zatekeen populazioaren sektore batera mugaturik gelditzea. Xabier Amuriza

-Adiskidea -esaten zuen dekanoak-, eklektikoa eta **epikurotarra** behar da izan. Josu Zabaleta

Enperadoreek mundu itxietan, sektetan, erlijiozkoetan zein bestelakoetan, antolatzen diren taldeak jazarri egiten dituzte, euren aurka konspiratuko ote duten beldurrez; horregatik, kristauak eta **epikurotarrak** ere jazartzen dituzte. Xabier Amuriza

Horregatik, Lukreziok bere poema argitaratu zuenean, **epikurotarrek** eurek ere albo egin zioten. Xabier Amuriza

Edo gure inguruan zen natura bera **epikurearra** zen. Piarres Aintziart

Kutsu berriko **epikurearrentzat** puntu kardinalak bost dira. Berria - Kultura

Epikuroar jatorra zen aldetik, Andresek ez zuen batere joerarik apostolutzarako. Josu Zabaleta

Bere gorputzaren ongizateak greziar **epikuroarrek** eta estoikoek *ataraxia* deitu ohi zuten bikaintasun eta oreka intelektualezko egoera horretarako prestatzen zuen. Josu Zabaleta

---

epikurozale *izond* Epikuroren doktrinaren zalea dena.

Epikurozale hitzak izan zuen -eta berrikiago ere izan duen- gaitzespen zentzua haren aurkariek zabaldu zuten, aurpegiratzen baitzioten zentzuen plazerra besterik ez zuela predikatzen. Xabier Olarra

Senekaren garaian, lau filosofia eskola ziren nagusi Erroman: platonikoena, aristotelikoena eta estoikoena, batetik, elkartze prozesu batean abiatuak, eta bestetik **epikurozaleen** lorategia, lizun eta zerriak zirelakoan beste hirurek baztertua, nahiz arrazoizkoenak izan ia beti. Markos Zapiain

Epikurozale [...]: Epikuroren aurkakoa; filosofo abstemio hark, gizonaren helburu nagusia atsegina bilatzea behar duela pentsatzen zuenez, ez baitzuen denbora alferrik galtzen zentzumenei atsegin ematen. Xabier Olarra

---

epilepsia **1** *iz* nerbio eritasuna, aldizkako konorte galtzea eta gorputz dardarak ezaugarri dituena. ik**erori 8**.

8Esan daiteke Bekkers oso moderatua zela gero ikusiko zenarekin konparatuta; izan ere, masturbazioaren ondorioen artean honakoak sartzen zituen "bakarrik": hazkuntza gelditzea, **epilepsia**, histeria, inpotentzia, fimosisa eta bizkarrezurreko muinaren biguntzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gaitz terminalak jota daudenek eta hiesa, artitrisa, minbizia, esklerosi multiplea eta **epilepsia** duten gaixoek dute kalamua tratamendu gisa baliatzeko baimena. Berria - Harian

Kortex-azpiko **epilepsia** baten antzekoa da Touretteren sindromea. Xabier Olarra

Epilepsia hori dutenek ez dute konbultsiorik izaten, baina aldi batez errealitatetik urruntzen dira. Berria - Gaiak

Neuronek kaltzio nahikorik ez dutenean agertzen bide da **epilepsia**. Berria - Gaiak

Henne, herritik ateratzen ikusi zutela entzun zuenean, **epilepsiak** jota erori zen estoldaren erdi-erdian. Koro Navarro

Osasun-zerbitzuetako langileek andetan gaixo berriak ekartzen jarraitzen zuten, eta banan-banan igaro ziren nire aurretik **epilepsiak** jota edo hesteak buxatuta, aiztokada-zauriekin edo gehiegizko heroina-dosiekin, beso hautsiekin edo buru odoleztatuekin. Oskar Arana

Gorputz osoa ikaratu zitzaion, **epilepsiak** jota bezala, eta handik gutxira txilioka hasi zen. Berria - Kultura

Behin **epilepsiak** erasan zidan eskola erdian, eta langabezian gelditu nintzen. Javi Cillero

Analisi matematiko honi esker, zehaztasun handiagoz ikusten da **epilepsiak** garuneko zein zatiri erasan dion. Berria - Gaiak

Poggibonsin, Ubertina izeneko neskatxa bat **epilepsiaz** gaixo zegoen. Askoren artean

Ebaki izan da bi hemisferioak konektatzen dituen zuntz sorta lodia, esperimentuetarako animalietan, eta orobat gizakietan, inoiz, **epilepsia** tratatzeko. Irene Aldasoro

Anaia bat **epilepsiatik**, edo deabruagandik, askatu zuen, eta San Geminin deabruak hartutako emakumea askatu zuen. Askoren artean

Beste eskuarekin beste zeozer heldu dut, eta ikara goxo batek hartu nau, **epilepsiaren** antzeko konbultsio kloniko eta tonikoekin. Joseba Sarrionandia

Epilepsiaren diagnostikoa egiteko elektroentzefalogramak erabiltzen dira askotan. Berria - Gaiak

Bere asma edo **epilepsiarako** aurredisposizioa. Harkaitz Cano

Adibidez, erortzeko mina dutenek (erorteko mina: Zuberoako baserritarrek horrela esaten diote **epilepsiari**). Gotzon Garate

2 (izenondo eta izenlagunekin)

2001eko apirilaren 21ean hilik topatu zuten **epilepsia** larri batek jota zegoen preso bilbotar bat. Berria - Euskal Herria

Batbatean zainoratze eta barru kolpe goxoa sentitu zuen arte, eta **epilepsia** laburrean ikaratu zitzaion gorputza, eta hasperena. Joseba Sarrionandia

Esklerosis mesialak eragindako **epilepsia** fokal tenporal sintomatikoa dutenei asko lagundu ahalko diegu, adibidez. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**epilepsi** g.er.)

Hirurogeita hamar urteko gizon batek mingainari koska egin omen zion **epilepsia**-atake batean. Irene Aldasoro

Ia berehala **epilepsia** atakea izan du Dardaraka hasi da inguruko dena botatzen. Joseba Sarrionandia

Artista handi askoren inspirazio kolpeak ez dira garunean, bekokiko lobuluan, jasaten dituzten **epilepsia** erasoen ondorio baizik. buruko, giharretako eta sabeleko mina, bertigoa, arnasa hartzeko arazoak, tentsio altua, **epilepsi** krisiak. Joxean Agirre

Epilepsia krisiaren ondoren mantarraiaren moduan geratu zen neska da. Joseba Sarrionandia

Epilepsia kasu batzuk botikekin konpontzen dira, baina beste batzuk, kasuen %25 inguru, ez. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
epilepsia duten (3); **epilepsia eta** (5); **epilepsia mota** (3); **epilepsiak jota** (3); **eta epilepsia** (4); **lobulu tenporaleko epilepsia** (3)

---

epilepsialdi *iz* epilepsia krisialdia.

Ebaki izan da bi hemisferioak konektatzen dituen zuntz sorta lodia, esperimentuetarako animalietan, eta orobat gizakietan, inoiz, **epilepsia** tratatzeko Irene Aldasoro

---

epileptiko **1** *izond* epilepsiarena, epilepsiari dagokiona. ik **epilepsia 3**.

Kanner motako haur gehienak atzeratuak dira, askotan oso larriki; krisi **epileptikoak** dituzte horietako askok, eta zeinu eta sintoma neurologiko sail bat ere izan dezakete. Xabier Olarra

Erabaki-, itxaropen- eta beldur-krisialdi bat izan zen, baina sukar handia, pisu-galera eta eldarnioak eragin zizkion, bai eta krisi **epileptiko** bat ere beharbada. Xabier Olarra

Edozein direla ere beraren dohain eta patologia pertsonalak -oroimena, margotzeko dohaina, krisialdi **epileptikoak** (apika), oroimina-, [...]. Xabier Olarra

Baina filmetan neurriak, markak, hezetasun ikaragarriak, asma atakeak, konbultsio **epileptikoak** eta orro ozenak, besterik ez da ikusten. Luis Elberdin

Garuneko lobulu tenporalen jarduera **epileptikoarekin** lotzen dira halako krisialdiak. Xabier Olarra

Andreari aste batzuetan gelditu zitzaion gogoan oroitzapen **epileptikoa**. Xabier Olarra

Anaia **epileptiko** bat gurutzearen seinaleaz sendatua. Askoren artean

Nire arbasoen heriotza motak ariko dira aztertzen oinorde **epileptikoren** baten bila. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Bi eskuak galtzen poltsikoetan sartu eta malekoian barrena haize-erauntsiaren kontra pitin bat makurturik joatea gustatzen zitzaidan, bitsa zerion itsasoaren aho **epileptikoa** ilunpean lehorrari haginka sumatuz. Joxean Agirre

Nor bere zilborrarentzat dantzaka, nor bere imintzioak eraginka, nor bere hankak bihurrika, hotzikaraz dardarka bezalatsu, dena **epileptiko** samarra, baina libertigarria nolanahi ere. Joxe Austin Arrieta

Musika zen, antigoaleko marinba baten durundia, harmoniarik gabeko mailukaldi gisako musika-mota izugarri bat, erabat **epileptikoa**. Joxe Austin Arrieta

-Zergatik bizi behar ote dut narraz nik, dohakabe honek, hiri ergel eta **epileptiko** honetan? Lopez de Arana

Haren hamar hatzen heldua nabaritzen dut garondoan, eta haren aho **epileptiko**-zoriontsua ikusten, baita paretako koadroa ere, berriro okertu dena. Joxe Austin Arrieta

Neure imajina etorri zitzaidan burura, bakarrik lo gaiztoaren aurreko une **epileptikoan**. Koro Navarro

• **3** *iz* epilepsiak jotako pertsona.

"Zoroen eta **epileptikoen** erdian" daukate Charentonen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Epileptikoaren sendaketa.

Edozein gaitz edo oinazek jotakoak -deabrudun, **epileptiko** nahiz elbarriak- eramaten zizkioten, eta hark sendatu egiten zituen. Elizen arteko biblia

Epileptiko bati kendu egin zioten ebakuntza batean, eta irakurri ezin zuela ikustean hasi zuten ikerketa. Berria - Gaiak

Jauna, erruki zaitez nire semeaz; **epileptikoa** da eta gorriak ikusten ari da: maiz erortzen da sutara eta uretara. Elizen arteko biblia

---

epilogo **1** *iz* idazlan baten hitzatzea.

Nobela hau, aurreko hiru iturri horietatik sortua da, baina, batez ere, eta egileak liburuaren paratestuetan oso argi adierazten duen bezala (hitzaurrea, **epilogoa**, azken solasa...) helburu didaktikoa duen narrazio literarioa dugu nobela hau. Berria - Kultura

Liburua apailatzeaz gain, hitzaurrea eta **epilogoa** ere idatzi ditu Ignazio Aiestaranek. Berria - Kultura

Gutxienez hori, egiten nuen hausnar neure artean: gauza batzuk ongi esanak esan eta hortzetan muturreko pare bat jo, nire amodiozko nobelan **epilogo** gisa jartzeko. Fernando Rey

Liburuak **epilogo** bat izan zuen osagarri, "Euskalkixak etorkizunian", eta horrek, behinik behin, gogoeta egiteko aukera eman zuen. Koldo Zuazo

"Nik neure aldetik", iragarri du Kandido Mierrek, "bigarren orduan bertso zaharren gaineko lezioari **epilogoa** eransteko asmoa daukat nahi duzuenontzat, horrekin gai honi

buruzko ikasketari bukaera emanez". Pako Aristi

Ramon Saizarbitoriaren Ehun metro nobelari **epilogoa** idatzi zion. Ana Urkiza

Testamentua-k leku berezia du Santuaren idazkien artean, "bera bakarrik agertzen delako haren esperientzia erlijioso orokorraren kontakizun, aurkezpen eta **epilogo** gisa, "konbertsio"tik hil aurreko garaia arte. Askoren artean

Aurreko kapituluen **epilogoa**. Xabier Olarra

Elezahar honek honako **epilogoa** du: "Bardongo iturriaren ondoan Kateen Etxea izeneko jauregi bat eraiki zuten". Martin Anso

Epilogoa: bere musikan ageri omen den ipar-hegoari buruzko artikulu laudoriozko bat irakurri berri, N. jaun artistak, oilanda bat bezain hegal-harro, hanka sartu du lorategiko putzu batean. Anjel Lertxundi

Epilogoa: biziaren zertarakoaz. Xabier Kintana

EPILOGOA: EKONOMIA BERRIA, ARAZO ZAHARRAK. Iñaki Heras

Juan Garziak egile argentinarraren Ipuin hautatuak bildumaren **epilogoan** dioen bezala (249. orrialdea): [...]. Iban Zaldua

2 (izenondoekin)

Irakurtzekoa da *Historia de los heterodoxos españoles*-ko **Epilogo** txikia: ez lurrak (bizi-inguruak), ez arrazak, ez legeriak edo ekonomiak, egin du nazio espainola, baizik katolizismoak: [...]. Joxe Azurmendi

Epilogo beldurgarri agresibo hau, faxismo espainolaren apologia disimulatugabe bat. Joxe Azurmendi

Irakurlearen gaztigu den atariko artikulu horretatik hasi eta **epilogo** koxkorreraino, azkenean, duda-muda eta atzera-aurrera askoren buruan, hasierako logika sinplea nagusitu da: ordenamendu zintzo-zintzo kronologikoa, alegia. Juan Garzia

Epilogo kritiko edo metasubjektiboa. Iñaki Segurola

Duela 21 urte ez zen gustura gelditu argitalpen harekin, eta orain Koldo Izagirrek orduan egin zion hitzaurreaz gain, Xabier Mendiguren Elizegik beste argitalpen baterako egin ziona azkenean ez zen atera eta egilearen beraren hitzaurrea eta **Epilogo** autobiografiko-sentimentala gehitu dizkio. Berria - Kultura

3 irud/hed

Hala ere, Gizarte Egipziako kolapsatuaren berezko bizialdiaren **epilogo** izugarri luzea asperraldi luze eta deabruzko kemenaldi asaldatuen txandaketa zen. Iñaki Mendiguren

Trantzealdi moduko logura eta, txandaka, xenofobia fanatikozko piztualdien erritmo hori berori bereiz daiteke Txinan, Ekialde Urruneko Zibilizazioaren historiaren **epilogoan**. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta epilogo (3)

---

epimetear *izond* Epimeteori dagokiona; gertaturiko gauzak atzerapenarekin ikusten dituena.

Gizon primitibo batek, atzera -lokatzetan geratutako zahar eta arbasoengana- zuzendutako bere mimesi-ahalmenaren **epimetear** norabideagatik aspalditxo geldi geratuak, orain berriro askatu zuen bere prometear élan-a sozialki ezinbestekoa den ahalmen hori berori pertsonalitate sortzaileengana, aitzindari bide-urratzaile gisa agertzen zitzaizkionengana, zuzenduz. Iñaki Mendiguren

---

epipaleolito *iz* historiaurreko aroa, paleolitoaren eta neolitoaren artekoa.

Garai guztiei buruzko informazioa izango du Arkeologia Museoko bisitariak: Paleolitoa, **Epipaleolitoa**, Neolitoa, Brontze Aroa eta Burdin Aroa, Erromatarren garaia eta Erdi Aroa. Berria - Kultura

---

episilogismo *iz* bi silogismoen batura, zeinean lehenaren ondorioa bigarrenaren premisa baita.

Arrazoimen-inferentzien ilara gorakorrak beste era batera jokatu behar duela arrazoimenaren ahalmenari dagokionez ilara beherakorraren aldean, h[au] d[a], arrazoimenak **episilogismoen** bitartez baldintzatukian duen aurrerapenean. Ibon Uribarri

---

episiotomia *iz* emakumearen perineoan, erditzea errazteko, egiten den ebaki kirurgikoa.

Noesiterapia eskolak jaso dituzten emaginak plazenta eskuz kentzeko gai izan dira, horretarako anestesia erabili beharrik izan gabe, eta **episiotomiak** ere egin dituzte. Berria - Gaiak

---

episkopal *izond* apezpikuari edo apezpikuei dagokiena.

Espainiako Konferentzia **Episkopalak** eman zuen kontrako iritzirik gordinena. Berria - Harian

Pertsonak izaki, homosexualek herritar orok dituzten eskubideak dituztela onartu arren, Konferentzia **Episkopalak** ez die ezkontzeko aukerarik ematen. Berria - Harian

«Gizakiaren jakinduria alboratzen da legea onartuta», adierazi zuen Espainiako Konferentzia **Episkopalak**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
konferentzia episkopalak (3)

---

episkopaldar *izond/iz* elizez mintzatuz, eliza anglikanoaren adar autonomoa osatzen duena; eliza horren jarraitzailea.

Doktrina indartsu honen ukazioa da Eliza **Episkopaldarraren** hortzei Neo-hiztegizaleek bota dieten erronkarik handiena. Xabier Olarra

Henry Codman Potter (1835-1908) **Episkopaldarren** New Yorkeko seigarren apezpikua. Xabier Olarra

Episkopaldarren erlijioan hezi omen zuten, baina laster utzi omen zuen "bertan behera sinesmen ofiziala" -jainkotasun pertsonal edo asmoduna- Jainkoaren ideia "zientifikoago" baten alde. Xabier Olarra

---

episodiko *izond* testuinguruduna.

Oroimen testuinguruduna -edo **"episodikoa"**- zen Gregek hain nahasia zeukana. Xabier Olarra

Halako oroimenean, eskuarki, irmoa izaten da eszenaren eta denboraren arteko lotura, edukiaren eta testuinguruaren artekoa (egoera konkretuko oroimena edo **episodikoa** deritzo). Xabier Olarra

Gauza asko nahasten dira hor aldi berean: herri-kontalaritzaren aipamena, Döblinen idazkeran ahozkotasunak zuen garrantzia, obrak egituratzeko Döblinen bide parataktiko **episodikoa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

episodio *iz* gertaera sail baten barnean bereiz daiteken atala.

Polemika hori ez da bi Espainien arteko aspaldidaniko gatazkan **episodio** bat gehiago besterik izan. Joxe Azurmendi

"La Condition Humaine" eleberrian, Malraux idazle frantsesak **episodio** ikaragarri hori aipatu zuen. Ramuntxo Etxeberri

Episodio horietan, itsua balitz bezala tratatzen zuen familiak Virgil. Xabier Olarra

Zeren, haren iritziz, kanilaren **episodioa** ez baita arazo larriago baten isla baino. Patxi Iturritegi

---

episteme *iz* ezaguera.

Bi jakite-mota ditugu baliagarri: *sophia* - **episteme** delakoa- eta politikaren zientzia. Askoren artean

Epistemea jardute diskurtsiboen positibotasunean irudi epistemologikoak eta zientziak ahalezkoak egiten dituen zera da. Xabier Arregi

Epistemerekin ulertzen da, hain zuzen, garai jakin bateko harremanen multzoa, zeintzuek batu ditzaketen irudi epistemologikoak, zientziak eta, behar izanez gero, formalizatutako sistemak sorrarazten dituzten jardute diskurtsiboak. Xabier Arregi

Epistemea ez da ezagupen era bat edo arrazionaltasun-mota bat, zeinak adieraziko lukeen subjektu baten, espiritu baten edo garai baten batasun subiranoa, horretarako zientzia ezberdinenak zeharkatuz. Xabier Arregi

Ikusi dugu Politeian zientzia matematikotik -dianoiatik- egiazko zientziara heltzeko - **episteme** delakoan sartzeko- jauzi bat egiten dugula. Askoren artean

Beharbada suposatuko da **episteme** hau mundu ikuskera baten antzeko zerbait dela, ezagutza guztien historiaren pusketa. Xabier Arregi

Epistemea ez da irudi geldia, egun batean agertutakoa eta bat batean eta modu zakarrean ezabaraziko dena: etendurak, desdoitzeak, kointzidentziak ezartzen eta desegiten diren multzo mugikor zehaztugabea da. Xabier Arregi

Esan dugu badela mundu adigarriko **epistemearen** eta mundu sentikorreko doxaren arteko beste jakite-mota bat, hau da, iritzi zuzena. Askoren artean

Eraketa diskurtsiboen, positibotasunen eta jakitearen azterketa eurek irudi epistemologikoekin eta zientziekin dituzten harremanetan, honi deritzo **epistemearen** azterketa. Xabier Arregi

Orain arte **epistemearekiko** orientazioa izan da esploratu dena. Xabier Arregi

---

epistemiko *izond* epistemearena, epistemeari dagokiona.

Entitate **epistemikoen** balioa ez datza euren baitan, ezagutzaren kateari jarraia emateko betetzen duen eginkizunean baizik. Askoren artean

Kuhnen "paradigma" nozioak irauli egin zuen zientzia ulertzeko modu estandarra, bertan, faktore **epistemikoek** baino gehiago, faktore sozialek hartzen baitute ezagutza legitimatzeko funtzioa. Askoren artean

Arrazoimenaren lorpen **epistemikoak** ezin koka daitezke esparru analitiko a priorian, gertaera historiko eta sozialetatik haraindi. Askoren artean

Nola sortzen den teoria bat edo edozein unitate **epistemiko**, zein testuingurutan, zein faktore eragileren mendean, zientzialariaren zein baldintza psikologikotan, eta abarri dagokion auzigunea. Askoren artean

Badu behakuntzak lehentasun **epistemikorik**? Askoren artean

Zientziaren eta teknologiaren balio **epistemiko** eta sozialen irudia. Askoren artean

Zientziaren Filosofiari dagokiola esklusiboki zientziaren eduki **epistemikoen** azterketa -metodoari, egiatasunari, objektibotasunari, eta beste nozio **epistemikoei** loturikoak-. Askoren artean

Internistak ezin du azaldu "oso sinpleak" diren subjektu **epistemikoen** baldintza **epistemikoa** -animalia gorenak, haur oso txikiak, etab.-. Askoren artean

---

epistemikoki *adlag* era epistemikoan.

Nola justifika daiteke **epistemikoki** argudio induktiboa? Askoren artean

---

epistemologia **1** *iz* ezagueraren metodoaren edo oinarrien teoria.

Horren arabera, **epistemologia** psikologiaren atal bihurtu beharko genuke. Askoren artean

Itaun horietaz baliatuta, **epistemologia**, hizkuntzaren filosofia, logika, metafisika, etika, erlijioaren filosofia, antropologia filosofikoa eta kulturaren filosofia jorratu dituzte, besteak beste, egileek, eta arlo bakoitzeko kontzeptu eta xede nagusiak aipatzeaz gain, oinarrizko bibliografia ere jaso dute. Berria - Kultura

Epistemologia naturalizatzeko ahaleginetan. Askoren artean

Hortaz, (1) **epistemologiaren** eta (2) ezagutzaren teoria (baita (3) gnoseologiarena ere zenbait tokitan) sinonimoak bailiran ulertuko ditugu. Askoren artean

Epistemologiaren hurrengo zutabe nagusia Descartes da, batez ere bere *Meditazio Metafisikoak*. Askoren artean

Eszeptizismoaren gerizpea, nola edo hala, beti ibili da **epistemologiaren** inguruan. Askoren artean

"Emandako" oinarri sendo batetik abiatuta eratutako ezagutzaren justifikazioa zertan datzan oso argi ezin esan denez gero, koherentismoaren alternatiba proposatu zen **epistemologian**. Askoren artean

Ontologian ez ezik **epistemologian** ere gogoa galdera-iturri da. Askoren artean

Epistemologian "errorearen teoria" garatu da, besteak beste, sen onaren arabera ontzat ematen ditugun hainbat ideiaz ("lore hau gorria da", adibidez) fida ez gaitezen. Askoren artean

Epistemologia horren helburua ezagutza (zientifikoaren) posibilitate-baldintzak aztertzea zen. Askoren artean

Beste arazo batzuk planteatuko ziren logika eta **epistemologiaren** aldetik. Askoren artean

Autoreak filosofiaren kontzepzio jakin bat defendatzen du, eta, horren arabera, filosofiaren zeregin eta mugetatik abiatuz, metafisika eta **epistemologiatik** igaro eta etika aztertzen amaitzen du. Askoren artean

Orduan, neopositibismoaren **epistemologia** eta ontologia zabaldu ziren. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Epistemologia kartesiarrari eman zaizkion erantzun zehatz batzuk hartuko dira kontuan. Askoren artean

Bertutearen **epistemologia**, **epistemologia** soziala, **epistemologia** feminista, Bayesiar **epistemologia**. Askoren artean

"Epistemologia konjeturalaz" mintzo zen eta "kalean aurkitutako ile bakoitzaren enigma argitu edo ahots anonimo bat entzute hutsarekin jabearen nortasuna azkar aurkituko duten profesionalak formatu" behar zirela zioen. Joxean Agirre

Descartesen filosofiaren printzipiook **epistemologia** modernoaren oinarrizko eskema finkatzen dute. Askoren artean

Epistemologia analitikoan jorratzen diren ia gai guztiak ukitzen ditu modu sinplean. Askoren artean

Epistemologia naturalizatuaren filosoforik ospetsuena Willard Quine da. Askoren artean

Kuhnek ikusmolde estandarraren oinarrizko **epistemologia** jartzen du auzitan. Askoren artean

Antzinako **epistemologian** Platonen Teeteto elkarrizketak izan zuen garrantzia azpimarratzen da. Askoren artean

Egungo **epistemologia**, hortaz, pil-pilean dago; posizio, proposamen, kontzepzio eta ikusmolde anitz ditu. Askoren artean

Garaiko **epistemologia** alemaniarrak Descartes-en, Locke-ren, Hume-ren edota Kant-en ohiko **epistemologia** fundazionistari jarraitzen zion. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Zientzia-eskuliburuetan edo historia- eta **epistemologia** -liburuetan agertzen den bezain hotz eta zorroztzat. Juan Garzia

Ikerketarik gabe nekez sortzen da metodologia zalantzarik, edo **epistemologia** zalantzarik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
epistemologia eta (3); **epistemologia kartesiarra** (3); **epistemologia naturalizatuaren** (3); **eta epistemologia** (3); **ikus epistemologia** (5)

---

epistemologiko *izond* epistemologiarena, epistemologiari dagokiona.

Balioak eta arauak, printzipio **epistemologikoak** eta metodologikoak, ez dira zentzu absolutuan ulertzen. Askoren artean

Mundu-ikuskera objektiboa eta subjektiboa kontrajartzen ditu, lehen eta hirugarren pertsonaren arteko asimetria **epistemologikoan** oinarritzen dena. Askoren artean

Zuhurtasun printzipioak berarekin dakarren segurtasunarekiko zorroztasun erregulatzaile hau, ordea, termino **epistemologiko** hutsetan [...] formulatutako justifikazio-testuinguru instituzional baten gain ezarri da. Berria - Gaiak

Gerta daiteke, halaber, bi atalase hauek denboran nahastuak izatea, eta positibotasun baten ezarpena eta irudi **epistemologiko** baten azaleratzea era batera gertatzea. Xabier Arregi

Auzi **epistemologikoak** pertsona baten ikuspuntu kognitiboaren barruan sortua eta maneiatua izan behar duela dio internismoak. Askoren artean

Meditazio Metafisikoak liburuan sortutako epistemologia kartesiarraren zati nagusia ikusi eta gero, badirudi esparru **epistemologikoaren** mugak jarri ditugula. Askoren artean

Ekonomiaren egitura **epistemologikoaren** eta bere funtzio ideologikoaren arteko harremanei buruzko edozein deskribapen. Xabier Arregi

Kurt Gödel batek ere, bere lanik funtsezkoenetakoa eta XX. mendeko Logikari egindako ekarpen **epistemologiko** baliotsuenetakoa, hots, aritmetika formalaren eta multzo teoriaren osagabetasunaz ziharduena, hogeitaka orrialde soiletan idatzi zuen. Iñaki Segurola

Lockeren teoria **epistemologikoak** ezagumenaren azalpena lortzen du hautematearen teoria baten bidez. Askoren artean

Hitzen esanahia argitzearen ardura eta hitzen erabilerak gure diskurtsoan duen balio **epistemologikoaren** ardura Erdi Aroko pentsaeraren erdi-erdian egon direla. Askoren artean

Funtsezko itauna hau da: nola eraikitzen dira kanon **epistemologikoak** finkatzen dituzten testuinguruak, eskema kontzeptualak? Askoren artean

Autore berak badu beste liburu bat, antropologia filosofikoaren estatutu **epistemologikoa** nola zehazki zedarritu interesatzen zaionarentzat. Askoren artean

Filosofia estandarraren garaikoek zientziarentzako funtsatze logiko eta **epistemologiko** sakona lortzea zuten azken xedea. Askoren artean

Kartesianismoaz haragoko alternatiba **epistemologikoak**. Askoren artean

Rortyren alternatiba konduktismo **epistemologikoaren** eskutik dator. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
irudi epistemologikoak (5); **irudi epistemologikoen** (3)

---

epistemologikoki *adlag* era epistemologikoan.

Kontzeptuak **epistemologikoki** gardenak dira, alegia, propietatearen ageriko alderdiekin lotuta daude. Askoren artean

Zientziaren eta teknologiaren demokratizazio osoa ez dela posible, beti oinarrituko baitira **epistemologikoki** bereizitako ikerketa-esparru definitu batzuetan. Askoren artean

Irudi berri horren arabera, zientzia ez da jada -ikuspegi razionalista tradizional batek ulertzen duen moduan- ezagutzabide **epistemologikoki** pribilegiatua izango, prozesu sozial, historiko eta kontingenteen emaitza baino. Askoren artean

Biraketa soziologista dela medio, ezagutzaren eraketan faktore sozialen garrantzia gehiegi azpimarratzeagatik, galdu egin da **epistemologikoki** pertinentea den munduarekiko harremana. Askoren artean

---

epistemologizatu, epistemologiza, epistemologizatzen du *ad* epistemologiko bihurtu.

Psikopatologiak, zientifikoa izateko nahia duen diskurtso legez, bera baino askoz lehenagokoa zen jardute diskurtsibo bat **epistemologizatu** zuen XIX. mendearen hasieran. Xabier Arregi

Gure kulturak ezaugarritzen dituen gradiente batengatik, eraketa diskurtsiboek ez diote uzten euren burua **epistemologizatzeari**. Xabier Arregi

---

epistemologizazio **1** *iz* epistemologizatzea.

Zenbait kasutan, positibotasun atalasea **epistemologizazioarena** baino askoz lehenago iragaiten da. Xabier Arregi

XVII. mendean positibotasun atalase bat ezagut daiteke: berak bat egiten du merkantilismoaren teoria eta jardunarekin; baina bere **epistemologizazioa** pittin bat geroago gertatuko da, mendearen bukaeran. Xabier Arregi

Ulertzen da, halaber, **epistemologizaziorako**, zientifikotasunerako, formalizaziorako iragaiteak eraketa diskurtsibo hauetako bakoitzean kokatzeko modua. Xabier Arregi

Bera da zientzia bakarra behingoan iragan duena positibotasun atalasea, **epistemologizazioarena**, zientifikotasunarena eta formalizazioarena. Xabier Arregi

Ez da harritzekoa baldintza hauetan esparru emankorrena, deskribapen arkeologikoari irekiena, izan dadila berpizkundetik XIX. mendera arte hainbat eta hainbat positibotasunen **epistemologizazioa** gararazi duen "garai klasikoa". Xabier Arregi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Definitzea nola egin ahal izan dien lekua **epistemologizazio** -prozesuei, zer erregulartasunaren arabera eta zer aldaketari eskerrak, nola eskuratu ahal izan dituen zientifikotasun-arauak, eta, agian, nola heldu ahal izan den formalizatze-atalaseraino. Xabier Arregi

XIX. mendeak, Ricardorekin, aldi berean positibotasun-mota berria markatzen du, hau da, **epistemologizazio** modu berria. Xabier Arregi

Eraketa diskurtsibo baten jokoan enuntziatuen multzo bat ebakitzen denean, horren helburua da egiaztatze eta koherentzia-arauak balioestea [...] eta jakitearen gainean funtzio menderatzailea betetzen badu [...], orduan esango da eraketa diskurtsiboak **epistemologizazio** atalasea iragan duela. Xabier Arregi

---

epistemologo *iz* epistemologian aditua den pertsona.

Epistemologo kartesiarraren arabera, gogotik kanpoko zerbaiten esperientzia bat dudanean [...], egiazkoa den gauza -ziur ezagutzen dudana- sentsazio subjektiboak dira soilik. Askoren artean

Hori esatea edo entzutea ez litzateke batere arraroa izango **epistemologoaren** ahoan, bilatzen duena arrazoinamendu-mota horren egituraren karakterizazio orokorra eta kontzeptuala den heinean. Askoren artean

Sen onaren arabera lotura sinple eta begi-bistakoa denak, justifikazio logiko sendoa behar du **epistemologoaren** ikuspegitik. Askoren artean

---

epistola *(orobat **epixtola** g.er.)* **1** *iz* Apostoluek beren jarraitzaileei idatzi zizkieten gutunetako bakoitza; Mezaren zatia, lehen otoitzen ondoan, delako gutun horietako zati bat irakurtzen dena.

Tesalonikarrei eginikako **epistolan** hauxe dio Jondoni Paulo-k: "Juduek Jesus eta profetak hil zituzten eta orain gu pertsegitzen gaituzte". Herria

Agustinek Testamentu Berria irakurri zuen, San Paulok Erromatarrei idatzitako **epistolan** 13,13 pasartea zehazki. Imanol Unzurrunzaga

Nire eromenean, ez zitzaidan burutik pasatu irakurgaia zela gutxienekoa, beste edozein izan zitekeelarik ere -San Paulok korintotarrei idatziriko **epistola** bat, demagun-. Ramon Saizarbitoria

Begiak jasotzen zituela, eta behakoa bere lagun Alypio irakurtzen ari zèn liburuan pausatzen, orrialde mirakulutsu hartan, non ediren baitzuen jondone Pauloren **epistola** hura. Joan Mari Irigoien

Tesalonikarrei egindako **epistolaren** zehar-aipamena. Xabier Olarra

Sartzen ginelarik elizan, hasi zuen apezak meza, erran zituen introito-ak eta kyrie eleison-ak, **epistolak** eta bertzelako berri onak, eta pulpiturat igo zen, sermoiari ekiteko. Joan Mari Irigoien

Frantzisko dohatsuak irakurri zuen ebanjelioa, eta beste anaia batek **epistola**. Askoren artean

Baionako San Andres elizan igande oroz 10.30tan emaiten den euskaldunen mezan parte hartzen dugunek aspaldiko urteetan ohituak ginen ikusten eta entzuten argi eta garbi eguneko **epistola** aldaretik euskaraz irakurtzen zigun adineko andere euskalduna. Herria

2 irud/hed

Honenbestez, bada, erlijio edo utopia garaikide berriaren liburu sakratuko **epistola** nagusi bilakatu da lehiakortasunari buruzko pasartea. Iñaki Heras

"Eder denik ez da egiaz beste", dio Nicolas Boileau-k **Epistola** batean. Juan Garzia

Pim gaixoa, neuk ere pentsa nezakeen nolako ondorioak ekarri behar zituen nire **epistolak**. Josu Zabaleta

---

epistolar *izond* eskutitzen bidez gauzatzen den literatur lana.

Katherine Kressman Taylorren Address Unkown eleberri **epistolarrean** oinarritutako obra estreinatuko du Tanttakak, apirilaren 22an, Donostiako Antzoki Zaharrean, Fernando Bernuesek zuzendurik. Berria - Kultura

Hortik abiatuta, bi plano nagusi txirikordatzen dituen nobela **epistolarra** osatu du Rodriguezek. Berria - Kultura

---

epistolario *iz* epìstola bilduma.

Proposamen berria egina zuen zirt-zart erosteko *La Prensa*ren bildumak, Kixotearen hiru mila eta laurehun ale, formato desberdinetan, Balmes-en **epistolarioa**, unibertsitate-tesiak, kontuak, boletinak eta antzerki-programak. Juan Garzia

---

epitafio **1** *iz* hilarrian ezartzen den esaldia.

Diofanteren **epitafioa** zen, Metrodororen Jauregiko antologia liburutik aterea: [...]. Jon Muñoz

Matilderi galdetu zion orduan **epitafiorik** ote zegoen hilarriren batean. Unai Elorriaga

Ez nion sekula **epitafioari** erreparatu. Anjel Lertxundi

Gizon bat **epitafioa** zizelkatzen ari zen hiru hizkuntzatan, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz: "Ez zen inoiz paradisutik hurbilago egon rantxo honetan pasatako denboran baino". Bernardo Atxaga

Nahiago duela historiak, esate baterako, H.G. Wellsen **epitafioa**: "Ez nizuen, ba, nik esan, babuok!". Unai Elorriaga

Argitasun horren froga da **epitafiorako** hautatu zuen esaldia [...]: «Barkatu hautsa». Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Orain, hari behin-betiko agur esateko ordua heldu denean, ez zait bururatzen **epitafio** egokirik. Joxerra Garzia

Okurritu zitzaion poetek historiarako utzi nahi dituztela epitafioak eta **epitafio** solemneak idazten dituztela. Unai Elorriaga

Ez dira poetak konturatzen solemnitatea marketing txarra dela, eta historiak nahiago izaten dituela bestelako **epitafioak**. Unai Elorriaga

Ordea, ote zen harentzat **epitafio** hoberik "Oro nahi eta oro gal" baino...? Joan Mari Irigoien

Canguilhem-ek diosku **epitafio** zirraragarria dela filosofoa eta matematikaria izan zen batentzat: bosta da lehen bakoitiaren eta lehen bikoitiaren batuketa pitagorikoaren emaitza. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Epitafio kutsua zuen azken lerroak, albiste arrunta baino hobituarioa izan zezakeena toki aproposagoa. Aingeru Epaltza

---

epitafiozale *izond* epitafioen zalea dena.

Bitxia zen hori Matiasentzat, sekula ez baitzen **epitafiozalea** izan. Unai Elorriaga

---

epitalamio *iz* eztei abesti lirikoa.

Ondoren, **epitalamioak** ere idatzi zituzten, eztei opari gisa: ezkonberrien izenek mugatzen zuten orduan alfabetoa. Iñaki Arranz

---

epitelial *izond* epitelioarena, epitelioari dagokiona.

Gorputzaren kanpoaldea nahiz biriken, digestio-aparatuaren, maskuriaren eta kanpoaldearekin komunikatzen diren beste barrunbe batzuen barrualdea, guztiak ere zelula **epitelialez** osaturik daude. Irene Aldasoro

Panda hartza desagertzea saihestu nahi dute zientzialariek, eta, horretarako, 26 pandaren zelula **epitelialak** gordeko dituzte. Berria - Gaiak

---

epitelio *iz* organismoko barne edo kanpo azala osatzen duen ehun trinkoa, barrunbeak estaltzen dituena.

Errezeptore horiek dituzten zelulak, berriz, sudur **epitelioaren** goiko aldean daudela zehaztu zuten. Berria - Gaiak

---

epiteto **1** *iz* izena ezaugarritzen duen izenondo edo partizipioa.

"Aberats" **epitetoaz** izendatzen du Korinto. Iñaki Iñurrieta

“Diru politikaren magoa, kondaira, orakulua, jainkoa” zer **epiteto** ez dira erabili Greenspan deskribatzeko? Berria - Ekonomia

Hizpidera ekarri zuen ez zuela uste huts egiten zuenik *sendo* **epitetoa** egozten bazion Alvaro Melián Lafinur-ek zirkulu guztietan bereganatua zuen prestigioari. Juan Garzia

Hitz bakoitza bere adiera jatorrez erabili duk, eta izen substantibo bakoitza lehen poetek eman zioten **epitetoaz** hornitu. Juan Garzia

Vatikanoko buruaren heriotzak, **epitetoen** neurrigabeko loratzea ekarri du, benetako erromileta estilistikoa. Iñigo Aranbarri

2 (izenondoekin)

Sustantiborik ezagutzen ez zuen hizkuntza baten posibilitatea erabili nuen gogoan, aditz inpertsonalez edo **epiteto** deklinaezinez osaturiko hizkuntza batena. Juan Garzia

Esanguratsua zen diktadore komunisten ohiko **epiteto** kutuna "bake-maitale" izatea. Iñaki Mendiguren

Bere ugazaba beldurtua guztiz **epiteto** itsusizko olde batean ito ondoren, ustekabean zetorkion etorkinaren kontra isuri zuen bere haserrea. Josu Zabaleta

---

epitome 1 *iz* idazlan baten laburpena.

Florok Tito Livioz egindako **Epitomea**. Iñaki Iñurrieta

Tito Livioren ***Epitomea***-k, non lege horretaz hitz egiten baita, ez dio gehiagorik. Iñaki Iñurrieta

Acevedo Díaz doktorearen **epitomeak** neurtitzetan ematera eskainirik dago buru-belarri. Juan Garzia

2 irud/hed

Estatu unibertsal baten gobernu-egoitza benetan lur ona da espirituzko haziak erortzeko, horrelako hiri bat mundu zabalaren **epitomea** baita eskala txikian. Iñaki Mendiguren

---

epixtola ik **epistola**.

---

epizentro *iz* lurrikara edo itsasikara baten hipozentroaren bertikalean dagoen lur azaleko puntua.

Lurrikarak Dorud hiritik hurbil izan du **epizentroa**, eta 330 herritan eragin ditu galerak. Berria - Mundua

Bost lurrikara gertatu ziren ostegun goizaldean Itoitz urtegiaren inguruan; horietako baten **epizentroa** urtegian bertan izan da. Berria - Euskal Herria

Aceh eskualdetik hirurogei kilometrora izan zen **epizentroa**. Berria - Harian

Epizentrotik mila metroko diametroko zirkulu batean ez zen inor bizirik atera. Pablo Sastre

Bestalde, itsasikararen **epizentrotik** hurbil egon arren, Sumatrak babestu du hein batean Malaysiako kostaldeko zati handi bat. Berria - Mundua

Bigarrenak **epizentroa** Santa Fen izan zuen, Lizoainen ekialdean. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Titulua du liburu honek narrazio guztiaren subjektua eta **epizentroa**. Berria - Kultura

Kanpoan egingo nuen, beraz, egitekoa, Espainiako Erreinuaren **epizentroan**: Madrilen bertan. Hasier Etxeberria

Jakina da XX. mendearen une batetik aurrera EEBBetara aldatu zela hizkuntzalaritzaren **epizentroa** eta ingelesa bihurtu zela hizkuntzalari gehiegiren hizkuntza ia bakar. Lourdes Oñederra

Iragarritako heriotzek ere zuloa uzten dute hemen, bularraren erdian, edo, okerragoa dena, hemen, buruaren **epizentroan**. Hasier Etxeberria

Bestondoaren **epizentroa** buruan nuen orain. Aingeru Epaltza

Sufrimenduaren hipozentroa gaixoaren baitan bazegoen ere, **epizentroa** hurkoengana aldatua zela irudi zuen. Imanol Zurutuza

Sentsualitate femeninoaren **epizentroa**. Luis Elberdin

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **du epizentroa** (3); **eta epizentroa** (4); **izan du epizentroa** (3); **izan zuen epizentroa** (5); **zuen epizentroa** (5)

---

epizeria *iz ipar* janari saltegia.

Auzotarrek begi onez ikus litzakete **epizeria** bat, arraintegi bat eta haragitegi bat, prentsa saltoki eta diru kutxa bat ere berdin, zergatik ez? abegi hobereneko gizona zen Beñat Ithurralde Barbeenekoa, jendeekin eta jendartean bizitua, guziz harremanetara ekarria, ostatu, kabale-bazka, **epizeria** eta okindegiarekin, salerospenetarako egina zen Beñat eta zinez maitatua eskualde guzian. Herria

Miarritzeko **epizeria** soziala 620 presunek baliatu dute, horietan 18/25 urteko 90 gaztek eta bestalde 150 haurrek. Herria

---

epiziklo *iz* antzinako astronomian, planeta baten orbita ustez zirkularraren gainean eratzen den zirkulua, delako planetaren itxurazko higidura azaltzeko erabiltzen zena.

Hitzari buruzko zure teoria hauek, anitzetan, Ptolomeoren planeta-sistema oroitarazten didate: hark ere asmatu eta asmatu egin zuen, **epiziklo** bati bertze **epiziklo** bat eransten ziola, konplikazioneari konplikazionea, alegia, eta maskarari maskara, eta, zertarako, eta huts egiteko, ororen buruan! Joan Mari Irigoien

Eta orbita haiek, beren sinpletasunean eta beren xumetasunean, guztia esplikatzen zitean, **epizikloetarat** eta eszentriketarat jo gabe. Joan Mari Irigoien

---

epizikloide *iz* zirkunferentzia bateko puntu batek marratzen den kurba, beste zirkunferentzia baten gainean biratzen denean.

Segidan Ptolomeoren teoriak esplikatu zizkidan, erraiten zidala nola astronomo greziarrak orbiten inguruko orbitetarat jo behar izan zuen - **epizikloideetarat** eta eszentriketarat-, planeten eta izarren mugimendu uste baino konplexuagoei behar bezala ihardesteko. Joan Mari Irigoien

---

epizootia *iz* animaleei erasaten dien epidemia.

FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak eta **Epizootien** Nazioarteko bulegoak herenegun egindako ohartarazpena bete egin da: hegaztien gripea berriz agertu da, Vietnamen. Berria - Harian

Europako Batzordeak esan zuen gaur jakinaraziko dituela emaitzak, baina **Epizootien** Nazioarteko Erakundeak atzo aurreratu zuenez, «arrisku handia» dago Errumaniako birus aldaera H5N1 izateko. Berria - Harian

Epizootien Nazioarteko Erakundeko ordezkariek, ordea, mezu ezkorragoa plazaratu zuen atzo. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **epizootien nazioarteko** (5)

---

epodo *iz* poesigintzan, lerro luze batek eta labur batek osatzen duten konbinazio metrikoa; konbinazio horrekin idatziriko poema.

Bako Jorace izena (Quintus Horatius Flaccus) Horazio poeta erromatarraren parodia da, haren oda eta **epodoetan** Bakori buruzko aipamen ugari aurkitzen baita. Xabier

Olarra

Horazioren **epodoak** gaztelaniaz leitzen ari nintzela, honako pasarte honekin egin dut topo hirugarrenaren atzenaldera: [...]. Patziku Perurena

Ez dakit inork euskaratu duen **epodo** honenik, baina *escaro* hori leitzean euskarazko ezkailu etorri zait gogora. Patziku Perurena

---

epoka *iz* garaia.

Beste garai edo **epoka** batean bizi behar izan bazinu zoin hautatuko zinuen? Menane Oxandabaratz

Zure literatur ibilbide luzeak aldi edo **epoka** ezberdinak bizi izan ditu; aldi batetik bestera jauziak nozitu al dituzu? Ana Urkiza

ETA -eta bere **epokan** IK- baliabide gisa kontsideratuz, irudi ote zaigu aitzineko belaunaldiek gaizki egin zutela, ez zirela nahikoa batailatu? Itxaro Borda

Epoka horretako Rockeroek, beren eguzkitako betaurreko beltzekin, euskaldunak izateko duintasuna eskaini ziguten! Ramuntxo Etxeberri

Trafikoko polizia **epokakoa** da, barregarri samarra, ingelesa, apur bat Buckingham palace, apur bat guardia noiz aldatzera doan galdetzeko gogoa ematen duen horietakoa, turista izanez gero. Harkaitz Cano

---

eponimo *izond/iz* pertsonez, animaliez edo gauzez mintzatuz, zerbaiti, eskuarki toki edo garai bati, izena ematen diona.

Zilegi da oroitaraztea Heliogabalo Asia Gutian hezi zela, jainko **eponimoaren** apaizen artean. Juan Garzia

Zuzen interpretatu baldin badugu Herodes Handiaren politika, herodianismoaren heroe **eponimo** hark sinesten zuen -oker, beste kasu batzuk aztertzean aditzera eman dugun legez- helenismo-dosi homeopatiko bat izango zela bitartekorik onena judaismoaren iraupena ziurtatzeko. Iñaki Mendiguren

Lehen planoa testu filmikoaren heterogeneotasunaren irudi **eponimo** moduko bat da, beraz, zinemaren ikusmolde honentzat, Josu Zabaleta

---

epopeia **1** *iz* heroi bat edo egitandi gogoangarri bat goraipatzea helburutzat duen poema luzea; egitandi gogoangarria.

Odisea **epopeia** bat da, ongi txertaturiko zati anitzez osatua. Juan Kruz Igerabide

Nire sekretu edo helburu handia zen, noizbait, nire herriaren **epopeia** idaztea. Ana Urkiza

Leiendak eta mirakuiluek erakutsi nahi digute Santiagoren Espainiaratzea, Karlomagnoren **epopeia** eta Errekonkistaren historia bat datozela. Piarres Aintziart

Euskal mitologia asmatzeaz beste lanik egin zuen Chahok: hala nola, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1830-1835) idatzi, Zumalakarregiren **epopeia** kontatzeko. Piarres Xarriton

1862an Kalevipoeg **epopeia** idatzi zen. Berria - Kultura

Testuaren lehenengo lerroetan, hamahiru ekitalditan banatuko duen **epopeia** geometrikoko "antzezleak" aurkezten ditu Euklidesek, antzerki-lan batean bezala. Jon Muñoz

Kantariak etortzen ziren alde guztietatik kontzertuak ematera, antzeztaldeek **epopeiak** antzezten zituzten. Juan Kruz Igerabide

Banuen harritzekoa entzun eta ikusi dudalarik telebixtan Jakes Haundiak erraiten Diên Biên Phû-ko gudari ohien aitzinean pairatu zuten hondamendia Orreagakoa bezala **epopeia** bilakatu zela. Herria

Ostiralean Vietnamek eta Frantziak egun hura ekarri zuten gogora, nork bere erara: askapen nazionalaren hasieraz mintzatu zen Hanoi, mugarri bat independentziarako bideaz; «hondamendia **epopeia** bihurtu zuten soldaduak» omendu zituen Parisek, Jacques Chirac presidentearen hitzetan. Berria - Mundua

Hirurogei urte **epopeiatik** epikara. Berria - Kultura

2 irud/hed

Sendabidean jarri eta biharamunean Bratislavarrak bere **epopeia** idazten hasi zen, letra xehez inprimaturiko bost liburukik osatuko zuten ibai-nobela. Iban Zaldua

Neure denboran behin bakarrik izan dut egokiera Polyolbioneko, Michael Drayton-en **epopeia** topografiko horretako hamabost mila dodekasilaboak aztertzeko; Ingalaterraren fauna, flora, hidrografia, orografia, historia militar eta monastikoa jasorik dago bertan; Gülbaharren eta Ahmeten maitasuna **epopeia** bihurtu zen jendearen ahotan. Juan Garzia

Espainiar gudagizonen izpiritu zorrotzak goritutako **epopeia** espero baitzuten denek, eta, horren ordez, malenkoniaren aire leunak darabilen orbela omen zirudien musikak; egunsenti martziala barik, eguzkia ezkutatu osteko ilun-dardara. Xabier Mendiguren Elizegi

Adin batekoek ahal hori badute edozein gertakari batetik, izanik ere arruntena eta herrian gertatu zena ez zen segur arrunta, sekulako **epopeia** eraikitzen ahal dutela. Michel Oronoz

-A ze **epopeia**, mutiko! Joxean Sagaztizabal

---

epopeiatxo *iz adkor* epopeia xumea.

Hona, azken finean, **epopeiatxo** honen segeretua eta giltza. Piarres Aintziart

---

epotx *iz* nanoa.

Azti handien bertuteak eta boterea eman nahi izan zizkion amak, eta horretarako jakinduriaren pazian sartu zuen, eta Bach **epotxari** agindu, hura zaintzeko eta aldian-aldian eragiteko. Pako Aristi

---

epsilon *iz* alfabeto grekoko bosgarren letra.

Gogora ekarri beharko litzateke etiko izendapenean bi termino bateratzen direla: *êthos* (eta letraduna), bizilekua, egoitza; eta *éthos* (**epsilon** letraduna) norbanakoaren profila, izaera propioa. Piarres Xarriton

---

epuru ik **ipuru**[1].

---

epuruketa ik **ipuruketa**.

---

era *(ETCn **113.566** agerraldi) iz* **1** zerbait agertzen, gertatzen edo gauzatzen den itxura berezi edo jakina. ik **modu; molde; manera; gisa; forma**. *(ikus beheko konbinatorian* era *hitzaren agerraldi maizkoenak).*

2 ***eraz*** *adlag* egoki.

Plan hoberik ez neukan gau hartarako eta, seikoteko inork trabarik ipini ez zuenez, euren atzetik abiatu nintzen, agian, zorte apur batekin, tarteka-marteka pintxo zatiren bat edo muturretatik **eraz** paratuko zitzaidalakoan. Jon Arretxe

Eraz eta moldez ez dugu legeen indargabetzea baimendu, legearen deserabilera edo erabilerarik eza tartean direla. Andres Urrutia

3 ***era burutu*** ik **burutu 4**.

4 ***era izan*** aukera izan.

Horrela, askatuago ibiltzeaz gainera, gorotza urrunxeago egiteko **era izango** du. Gotzon Garate

Unibertsitate honetako mitin batean Manuel Urrutia presidente berria agurtzeko **era izan** nuen. Edorta Jimenez

Munduko lau hegaletan ibilia naiz eta hiri asko ezagutzeko **era izan** dut. Gotzon Garate

Halako batean, zirujau, marinel, belagile eta besterik zer zen ez nekien harekin berbalditxo bat egiteko **era izan** nuelarik, nire atseginen eta minen hariak ehun bakarrean gurutzatu ziren. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

artean era (8); **baina beste era** (13); **baina era** (125); **baina era berean** (95); **bat era** (12); **begiespenaren era** (8); **berak era** (8); **bere era** (12); **beste era** (551); **beste era bat** (18); **beste era batean** (55); **beste era bateko** (78); **beste era batekoa** (14); **beste era batera** (328); **beste era batzuetako** (8); **beti era** (8); **bi era** (25); **bizitzeko era** (19); **block era** (9); **da era** (53); **da era berean** (27); **den era** (23); **den era berean** (9); **dira era** (20); **dira era berean** (9); **diren era** (14); **ditu era** (8); **du era** (17); **duen era** (18); **dute era** (13); **duten era** (11); **edo beste era** (21); **edo era** (14); **egiteko era** (54)

aldez aurretik erabakita (6); aski erabakita (11); aski erabakita utzi (8); aurretik erabakita (10); aurretik erabakitako (7); aurrez erabakita (5); baina erabakita (5); dago erabakita (13); dagoeneko erabakita (6); dena erabakita (18); egitea erabakita (7); erabakita dago (27); erabakita dagoela (6); erabakita dagoen (5); erabakita daude (11); erabakita dauka (9); erabakita egon (5); erabakita ere (5); erabakita ez (6); erabakita gelditu (6); erabakita geratu (15); erabakita geratu dira (5); erabakita nengoen (5); erabakita neukan (11); erabakita utzi (62); erabakita utzi zuen (23); erabakita utzi zuten (14); erabakita uzteko (20); erabakita uzteko aukera (7); erabakita zegoela (11); erabakita zegoen (36); erabakita zegoenean (5); erabakita zeukan (15); erabakita zeukaten (5); erabakita zuen (12); erabakitakoaren arabera (7); erabat erabakita (5); ere erabakita (7); eta erabakita (11); eta erabakitakoa (6); eta partida erabakita (9); euskal herritarrek erabakitakoa (5); ez dago erabakita (11); ezer erabakita (5); guztiz erabakita (7); hala erabakita (34); herritarrek erabakitakoa (7); hori erabakita (5); horrela erabakita (10); ia erabakita (17); ia erabakita utzi (9); jada erabakita (5); kanporaketa erabakita (15); ordurako erabakita (5); partida erabakita (45); partida erabakita utzi (14); partida erabakita uzteko (12); partida erabakita zegoen (5); partida ia erabakita (5); zuen erabakita (5)

ala ez erabakitzea (6); **buruz erabakitzea** (5); **den erabakitzea** (16); **duen erabakitzea** (9); **edo ez erabakitzea** (16); **egin erabakitzea** (6); **erabakitze eskubidea** (7); **erabakitzea da** (5); **erabakitzea eta** (6); **erabakitzea ez** (11); **erabakitzea zer** (5); **eta erabakitzea** (8); **etorkizuna erabakitzea** (15); **ez erabakitzea** (27); **zer egin erabakitzea** (5)

ala ez erabakitzeko (33); **askatasunean erabakitzeko** (8); **askatasunez erabakitzeko** (6); **baina erabakitzeko** (5); **bakean erabakitzeko** (6); **behar den erabakitzeko** (9); **bere etorkizuna erabakitzeko** (37); **beren etorkizuna erabakitzeko** (17); **buruz erabakitzeko** (23); **dela eta erabakitzeko** (5); **demokratikoki erabakitzeko** (15); **demokratikoki erabakitzeko eskubidea** (5); **den erabakitzeko** (31); **dena erabakitzeko** (5); **diren erabakitzeko** (13); **dituen erabakitzeko** (5); **du erabakitzeko** (10); **duen erabakitzeko** (25); **dute erabakitzeko** (8); **duten erabakitzeko** (23); **edo ez erabakitzeko** (76); **egin erabakitzeko** (30); **eman erabakitzeko** (10)

erabakitzeko ahala (5); **erabakitzeko ahalmena** (46); **erabakitzeko ahalmenik** (5); **erabakitzeko ardura** (6); **erabakitzeko askatasun** (5); **erabakitzeko askatasuna** (7); **erabakitzeko asmoa** (5); **erabakitzeko aukera** (37); **erabakitzeko aukera izan** (7); **erabakitzeko aukerarik** (8); **erabakitzeko dago** (7); **erabakitzeko duen** (28); **erabakitzeko duen eskubidea** (20); **erabakitzeko duten** (28); **erabakitzeko duten eskubidea** (15); **erabakitzeko egin** (6); **erabakitzeko eskubide** (8); **erabakitzeko eskubidea** (328); **erabakitzeko eskubidea aldarrikatu** (13); **erabakitzeko eskubidea du** (5); **erabakitzeko eskubidea duela** (24); **erabakitzeko eskubidea duen** (10); **erabakitzeko eskubidea dugu** (5); **erabakitzeko eskubidea dutela** (14); **erabakitzeko eskubidea ere** (5); **erabakitzeko eskubidea eta** (16); **erabakitzeko eskubidea gauzatzeko** (5); **erabakitzeko eskubidea izan** (6); **erabakitzeko eskubidea nola** (5); **erabakitzeko eskubidea onartzea** (9); **erabakitzeko eskubidean** (10); **erabakitzeko eskubidearekin** (5); **erabakitzeko eskubidearen** (65); **erabakitzeko eskubidearen aitortza** (5); **erabakitzeko eskubidearen alde** (15); **erabakitzeko eskubidearen aldeko** (7); **erabakitzeko eskubideari** (26); **erabakitzeko eskubideari buruz** (10); **erabakitzeko eskubideari buruzko** (6); **erabakitzeko eskubideaz** (11); **erabakitzeko eskubiderik** (5); **erabakitzeko eskumena** (9); **erabakitzeko eta** (14); **erabakitzeko euskal** (6); **erabakitzeko gai** (7); **erabakitzeko gaitasuna** (50); **erabakitzeko gaitasuna eta** (6); **erabakitzeko gaitasunik** (6); **erabakitzeko garaian** (6); **erabakitzeko ordua** (10); **erabakitzeko orduan** (14)

eraiki erabakitzeko (6); **eta askatasunean erabakitzeko** (5); **eta demokratikoki erabakitzeko** (11); **eta erabakitzeko** (89); **eta erabakitzeko eskubidea** (37); **eta erabakitzeko eskubidearen** (8); **eta erabakitzeko gaitasuna** (8); **etorkizuna erabakitzeko** (115); **etorkizuna erabakitzeko aukera** (10); **etorkizuna erabakitzeko duen** (5); **etorkizuna erabakitzeko duten** (5); **etorkizuna erabakitzeko eskubidea** (43); **etorkizunari buruz erabakitzeko** (5); **etorkizunaz erabakitzeko** (10); **euren etorkizuna erabakitzeko** (11); **euskal gizarteak erabakitzeko** (5); **euskal gizartearen erabakitzeko** (7); **euskal herriak erabakitzeko** (11); **euskal herriaren erabakitzeko** (12); **euskal herriari erabakitzeko** (6); **euskal herritarren erabakitzeko** (15); **ez erabakitzeko** (115); **ezer erabakitzeko** (5); **gainean erabakitzeko** (7); **geroa erabakitzeko** (6); **geuk erabakitzeko** (5); **geuk erabakitzeko ordua** (5); **gizarteak erabakitzeko** (6); **gizartearen erabakitzeko** (9); **gizartearen erabakitzeko eskubidea** (6); **gure etorkizuna erabakitzeko** (14); **hartu erabakitzeko** (6); **herriak erabakitzeko** (16); **herriak erabakitzeko duen** (6); **herriak erabakitzeko eskubidea** (6); **herriaren erabakitzeko** (15); **herriaren erabakitzeko eskubidea** (9); **herriari erabakitzeko** (8); **herriari erabakitzeko eskubidea** (5); **herritarrei erabakitzeko** (5); **herritarrek erabakitzeko** (8); **herritarren erabakitzeko** (20); **herritarren erabakitzeko eskubidea** (8); **hori erabakitzeko** (6); **inguruan erabakitzeko** (5); **izango den erabakitzeko** (6); **jarri erabakitzeko** (6); **kabuz erabakitzeko** (5); **kokalekua erabakitzeko** (8); **lurraldetasuna eta erabakitzeko** (5); **nafarren erabakitzeko** (14); **nafarren erabakitzeko eskubidea** (7); **nahi duten erabakitzeko** (5); **partida erabakitzeko** (16); **politikoa erabakitzeko** (9); **postuak erabakitzeko** (9); **zen erabakitzeko** (13); **zer egin erabakitzeko** (21); **zuen erabakitzeko** (11)

arabera erabakitzen (28); **arabera erabakitzen da** (7); **arabera erabakitzen du** (5); **ateratzea erabakitzen** (5); **bakoitzak erabakitzen** (8); **batek erabakitzen** (10); **berak erabakitzen** (21); **berak erabakitzen du** (6); **berak erabakitzen duela** (5); **bitartez erabakitzen** (5); **buruz erabakitzen** (7); **da erabakitzen** (8); **dela erabakitzen** (5); **demokratikoki erabakitzen** (5); **den erabakitzen** (8); **duena erabakitzen** (5); **edo ez erabakitzen** (5); **egin erabakitzen** (6); **egitea erabakitzen** (16); **ematea erabakitzen** (8)

erabakitzen ari (22); **erabakitzen ari direla** (5); **erabakitzen badu** (52); **erabakitzen badugu** (11); **erabakitzen badute** (22); **erabakitzen baita** (5); **erabakitzen baitu** (7); **erabakitzen da** (36); **erabakitzen dela** (6); **erabakitzen den** (13); **erabakitzen dena** (7); **erabakitzen dira** (8); **erabakitzen diren** (9); **erabakitzen ditu** (5); **erabakitzen dituzte** (8); **erabakitzen du** (133); **erabakitzen du zer** (7); **erabakitzen duela** (18); **erabakitzen duen** (41); **erabakitzen duena** (40); **erabakitzen duenak** (5); **erabakitzen duenari** (5); **erabakitzen duenean** (12); **erabakitzen dugu** (14); **erabakitzen dugun** (6); **erabakitzen duguna** (5); **erabakitzen dut** (12); **erabakitzen dute** (59); **erabakitzen dutela** (9); **erabakitzen duten** (33); **erabakitzen dutena** (28); **erabakitzen dutena errespetatzeko** (7); **erabakitzen dutena izango** (6); **erabakitzen dutenak** (7); **erabakitzen duzu** (8); **erabakitzen ez** (14); **erabakitzen hasi** (5); **erabakitzen nuen** (7); **erabakitzen uzteko** (7); **erabakitzen zen** (6); **erabakitzen ziren** (7); **erabakitzen zuela** (6); **erabakitzen zuen** (16); **erabakitzen zuena** (5); **erabakitzen zuenean** (6); **erabakitzen zuten** (11)

ere erabakitzen (6); **esprintean erabakitzen** (7); **eta erabakitzen** (14); **etorkizuna erabakitzen** (10); **eurek erabakitzen** (5); **euskal herritarrek erabakitzen** (5); **eusko legebiltzarrak erabakitzen** (5); **ez erabakitzen** (11); **guk erabakitzen** (6); **hala erabakitzen** (11); **han erabakitzen** (8); **hark erabakitzen** (8); **hartzea erabakitzen** (7); **herriak erabakitzen** (8); **herritarrek erabakitzen** (11); **herritarrek erabakitzen dutena** (9); **hori erabakitzen** (5); **itzultzea erabakitzen** (5); **izatea erabakitzen** (14); **joatea erabakitzen** (10); **legebiltzarrak erabakitzen** (8); **nafarrek erabakitzen** (5); **nafarrek erabakitzen dutena** (5); **norberak erabakitzen** (6); **nork erabakitzen** (7); **nork erabakitzen du** (6); **parlamentuak erabakitzen** (5); **partida erabakitzen** (5); **uztea erabakitzen** (5); **zer erabakitzen** (7)

erabakiz gero (40); **hala erabakiz** (9); **hala erabakiz gero** (9)

---

erabaki[2] **1** *iz* erabakitzea; erabakitzearen ondorioa. *(ikus* erabaki *aditzaren sarrerako konbinatorian* erabaki *aditzaren eta izenaren agerraldi maizkoenak).*

Erantzun eta **erabaki** haietan, azken batean, jarduera politikoa eta militarra ulertzeko bi modu desberdin ari ziren nabarmentzen. Rafa Egiguren

Baina guk bekatu egin dugu, gaiztoak izan gara eta zure aurka atera, zure agindu eta **erabakietatik** urrunduz. Elizen arteko biblia

Nire **erabakia** -lan-bidaia bertan behera utzi eta, horren ordez, gaztetako lagun zahar bat berrikusteagatik ez besterengatik, Guatemalan barrena txango pribatu bat egitekoa- azken unean otu zitzaidan. Joxe Austin Arrieta

Ingurumenari eragiten dioten **erabaki** edo ekintzen ondorioz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gorde Moisesen arauetan idatziak dauden lege, agindu, **erabaki** eta burubideak. Elizen arteko biblia

Erabaki hark geroko bizitza baldintzatuko zidan, hein handi batean behintzat. Juan Kruz Igerabide

Hautsi-mautsi iduriko **erabaki** horrek harritu zuen Azpilkueta, zinez uste baitzuen berak hobengabea zeukan gizona, osoki zuriturik aterako zela. Piarres Xarriton

Jo dezagun etorkizunari buruzko **erabaki** batek (**erabaki** oro dago etorkizunari begira) gauzak ebakitzen dituela. Iñaki Segurola

Susmoa dut, hala ere, zure eromenaren objektua ni izatea eta ez beste bat, arbitrario samarra izan zela; ez kasualitatearen emaitza hutsala, nahi baduzu, erabakimenak ere izango zuen-eta bere partea, baina **erabaki** horretan ni ez nintzen funtsezko faktorea. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan atsekabean eroapen handiko, eta seguru egon, beteko baitu Jaunak bere **erabaki** eta agintzaria. Askoren artean

Eta, nonbait, **erabakiak** badu alde baikorra. Berria - Kultura

Trentoko Kontzilioko **erabakiak** beteaz, kristau ikasbide zenbait itzuli ziren euskarara. Koldo Zuazo

Goiz batez estudiora zihoala gertatutako esperientzia bitxi batek indartu zion **erabaki** hori, istripua izan eta handik bost bat astera. Xabier Olarra

Gure bake honek ordea, debekatzen du heretikoen gaztigatzea eta, ondorioz, elizaren **erabakiaren** aurka doa eta beraz, ez da, ez zuzena, ez onargarria. Piarres Xarriton

Millerrek ez du espetxera joan beharko epaileek **erabakien** aurkako helegitea aztertu arte. Berria - Gaiak

Epaileen **erabakiei** so eginez gero, bada urtegia 506 metroko mailatik gora betetzea. Edurne Elizondo

Azterketa biologikoak onartu nahi ez izanak ere izango zuela nolabaiteko eraginik epailearen **erabakian**. Ramon Saizarbitoria

Sindikatuek txalotu egin zuten atzo exekutiboaren **erabaki** hori. Berria - Ekonomia

Nola justifikatuko du bakoitzak, moralki, **erabaki** hori? Askoren artean

Halere, **erabaki** horren ondorioek grinatzen zuten. Elena Touyarou

Aspaldian apostolu sainduek eta haien ondokoek erabakia dute eta gaurdaino Eliza Saindu Katolikoak aitzineko **erabaki** haien arabera sinesten du, ez dela zilegi Erromako Apezpikuaren baimenik gabe ez kontziliorik biltzea, ez apezpikurik kondenatzea. Piarres Xarriton

Erantzun eta **erabaki** haietan, azken batean, jarduera politikoa eta militarra ulertzeko bi modu desberdin ari ziren nabarmentzen. Rafa Egiguren

Daviden azken **erabaki** hauen arabera, hogei urtez gorako lebitarrak sartu zituzten zerrendetan. Elizen arteko biblia

Gutunontzira jaitsi nintzen, aldez aurretik azken **erabakia** patuaren esku nola utzi pentsatuta. Ramon Saizarbitoria

Saia zaitez, beraz, **erabaki** hauen kopia egin eta Jonatani ematen. Elizen arteko biblia

Berak ere ez zekien, ordea, zergatik hartzen zuen jaisteko **erabakia**. Ramon Saizarbitoria

Egia da ere Frantziskok bere oinarrizko aukerekiko leialtasunez hartzen duela **erabakia**. Askoren artean

Anai Joanek profezi graziaren bidez ezagutu zituen nobizioaren tentaldia eta hark hartutako **erabakia**. Askoren artean

Hausnarrean egon zen, zalantzati, ezbaian, **erabaki** bat hartu ezinik. Patxi Zubizarreta

Oraindik ezin dutela **erabakirik** hartu. Patxi Zubizarreta

Luze hausnartu ondoren hartu nuen **erabaki** hori. Karlos Zabala

Erabakiren bat hartu beharko dun. Fernando Morillo

-Ez, ez nauk joango! -esan zuen berriro handik pixka batera, ordu arte **erabakia** hausnartzen aritu izan balitz bezala. Anjel Lertxundi

Nafarroako auzitegi nagusiak nafar gobernuaren **erabakia** ezeztatu du. Herria

Erabaki bat hartu behar zuen... zein, ordea? Aritz Gorrotxategi

Erabakiak Salomonek, despotismo ilustratuaren beste adibide horrek, bezain ongi hartzen jakin zuela. Jon Alonso

Hainbat **erabaki** hartzeko orduan, literaturan ibilitako bidea eduki zuten kontuan. Koldo Zuazo

Eta zer dela eta hartu duk **erabaki** hori hain bat-batean? Jose Morales

Ordurako **erabakia** hartua zuen; halere, plantak egiten jarraitu zuen, erregu eske edo. Migel Angel Mintegi

Bi **erabaki** hartuak zituen: ez zuela autopsiaren egiteko baimenik emanen, eta hori, legearen arabera haren esku zegoen; bestea, bisitak funerariumean eginen zirela eta proposatu zioten gela "Salon Mozart" deitzen zela. Daniel Landart

Bere bidaia segitzea **erabakia** zuen, oztopo gaindiezin batek geldiarazten ez bazuen, behinik behin. Karlos Zabala

Gudarostearen erdia eta elefante-taldea utzi zizkion, beraren **erabaki** guztiak betetzeko aginduz. Elizen arteko biblia

Erabaki hau eman zuen: -Erdibi ezazue bizirik den haurra, eta emaiezue erdibana. Elizen arteko biblia

Zer **erabaki** hartu? Askoren artean

Ez zion axola zer **erabaki** hartzen zuen. Oskar Arana

Ea, ba, har ezazu **erabaki** bat, agudo! Migel Angel Mintegi

Denbora luzea eman dut hausnarrean, eta beldur naiz orain neure **erabakia** aldatu behar ote dudan. Agustin Otsoa

Erabakiak langileak pozik ez dituela utzi gaineratu zuen Ballesterosek. Berria - Ekonomia

Era horretan, haien **erabakiek** ausardia eta zuhurtasuna bateratzen zituzten. Koro Navarro

Jainkorik gabe, ni erabat neure buruaren jabe nintzen, neure **erabakien** jabe, askatasun infinito bat erdietsi banu bezala. Herria

Hautsa beste **erabaki** batzuek harrotu zuten, "h" letraren erabilerak, esate baterako. Pello Salaburu

Bazekien **erabakia** garrantzi handikoa zela. Askoren artean

Erabaki hura tinkoa zela eta aldez aurretik hartua zegoela egiaztatu zuenean. Joxemari Iturralde

Zentzuzkoa zen **erabakia**. Koldo Zuazo

Eta ez baitzuten gehiago gai hori elkarrekin aipatu, uste zuen **erabaki** hura geroratu zuela, beste hainbat bezala. Elena Touyarou

Erabaki horri helegitea aurkeztu zion Jose Maria Aznarren gobernuak Auzitegi Konstituzionalean, «eskumen inbasioa» argudiatuta. Berria - Ekonomia

Eranskina: Hainbat **erabaki** terminologiaz. Askoren artean

Garbi ikusten da adierazpen askatasunaren aurkako **erabaki** bat izan dela. Pako Aristi

Alderdikideen bozei esker, bere **erabakiak** aurrera ateratzea. Koldo Zuazo

Erabakiak, ordea, kritika ugari eragin zituen. Berria - Gaiak

Minoritate bat indargabeturik gelditzen baita gehiengoaren **erabakiekin** konformatzen bada. Ana Urkiza

Zuzendaritzak testua sostengatzeko hartutako **erabakiarekin** bat ez zeudelako. Berria - Harian

Erregeak bere **erabakiaren** berri emateko gertu ematen zuen. Jon Alonso

Erabakiaren zentzu pascaldarrean finkatzen da subjektibotasun moderno hau, kontzientzia nazionala subjektu berri horren parte izanik. Joseba Zulaika

Zientzialariei ateak zabaldu nahi dizkie, haien iritziak entzuteko, eta gardentasuna bultzatu nahi du transgenikoen inguruko **erabakietan**. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erabaki zailak dira guretzat -esan nion Mary Anni-. Bernardo Atxaga

Erabaki bortitza hautetsi batentzat. Herria

Formalki zuzendariek ezartzen baitituzte **erabaki** nagusiak langileei jaramonik egin gabe. Iñaki Heras

Begi bistakoa da erabaki bat hartu berri duela, **erabaki** gaiztoa. Jon Alonso

Ez litzateke izango, ez, **erabaki** txarra, garai ilunotan. Oskar Arana

Greziarrek, historian zehar, **erabaki** okerrak hartu dituztela, objektutik gertuegi daudelako edo logika gehiegi erabiltzen dutelako. Berria - Gaiak

1220an **erabaki** larri bat hartzera behartua sentitu zen Frantzisko: Ordenako agintea besteen esku uztera, alegia. Askoren artean

Pauso sendoak, **erabaki** garbi bat hartu duenaren ibilera. Lourdes Oñederra

Erabaki zuhur horri esker, bestalde, bi klan etsai horietako buruzagiak zoriontsu bizi izan ziren. Josu Zabaleta

Luterok kristauari Jainkoaren **erabaki** ulertezinak onartzea beste aukerarik ez dio uzten. Markos Zapiain

Erabaki mingarri harekin batera gaixotasun bitxi batek jo zuen Franco, eta osasun-etxe batera joan behar izan zuen. Xabier Olarra

Erabaki atzeraezin bat hartu dut. Patxi Zubizarreta

Azkenean, egoera hari amaiera emateko **erabaki** irmoa hartu nuen. Ramon Saizarbitoria

Bihar aldez aurreko **erabaki** irmoetara itzuliko naiz. Jon Alonso

Anaxagoras preso zegoen, preso politikotzat atxilotua, koadraturaren problema ebazteko **erabaki** sendoa hartu zuenean. Jon Muñoz

Gudari hauek guztiak, gudu-lerrotan antolatu eta **erabaki** sendoa harturik, Hebronera etorri ziren, David Israel osoaren errege izendatzera. Elizen arteko biblia

Horregatik, **erabaki** tinkoa hartu nuen Londresera joaten nintzen bakoitzean, urtero hiruzpalau aldiz, Stephen bisitatzekoa. Xabier Olarra

Angeloren etxetik pasatu, nire gauzak jaso eta beste norabait alde egiteko **erabaki** biziak hartua zidan barrena. Anjel Lertxundi

Balio kultural eta politiko batzuen defentsan, eta **erabaki** pertsonal baten askatasunean, posible zen indarkeria justifikatzea eta praktikara eramatea. Joseba Zulaika

Erabaki akademiko horiek Euskaltzaindiari dagozkio, eta ez, esan bezala, Eusko Jaurlaritzari. Pello Salaburu

Hor **erabaki** politiko handi bat hartu behar zen, gure gainetik zegoena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gehienetan, arazo baten aurrean nekez har daitekeela, ekuazio baten ebazpen posible bakarra bailitzan, nolabaiteko **erabaki** tekniko optimoa. Iñaki Heras

Kaxako umeen batzordeak, **erabaki** salomoniko batean, Jazinto bere ama biologikoari, Maria Sanz Llorenteri ematea deliberatzen du, eta aldi berean epaitegiaren aurrean salatzea, umea abandonatu zuelako jaio berritan. Koldo Izagirre

Beraz, neure burua zuritzeko, Rossetti eta prerrafaelita guztiengandik urruntzeko **erabaki** taktikoa hartu nuen. Ramon Saizarbitoria

Eztabaida ideologikoaren bideak zehazteko, **erabaki** osagarri bat sartu nahi zuten testuan. Rafa Egiguren

Ivan Revinsky zirku enpresariak bi **erabaki** garrantzitsu hartu zituen. Harkaitz Cano

'Habanako gutuna' izenaz ezagutuko den demokrazia-hastapenei buruzko **erabaki** orokorra onestea. Edorta Jimenez

Erabaki berbera ari ziren hartzen, gainera, beste hamaika gazte. Txillardegi

Pro Asyl Alemaniako giza eskubideen erakundeak ere salatu egin zuen etorkinak Espainiaren menpeko lurraldeetatik Marokora bidaltzeko **erabakia**. Berria - Harian

John Bellingerrek, berriz, higuingarritzat jo zituen irudiak, eta tamalgarritzat jo zuen horiek zabaltzeko **erabakia**, «iritzi publikoa sutzeko soilik balioko dutelako». Berria - Mundua

Txileko Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen atzo pasa den maiatzean Helegite Auzitegiak Augusto Pinocheti immunitatea kentzeko **erabakia**. Berria - Mundua

Azken **erabakia** falta da, baina oraindik ez dut sinesten Gorabehera handiak izan eta azken **erabaki** bat hartu behar duen bikotearen itxura omen genuen. Berria - Kirola

Pentsu dut konprenitzen duzula hartu **erabaki** horiek berehala obratu behar direla. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez zen **erabaki** zehatzik hartu, baina batzorde bat osatu zen. Berria - Kultura

Ez al zen hura nik sagastian ustekabean hartu nuen **erabaki** zentzugabeari bere zentzu ezkutua. Joan Mari Irigoien

Munduko baliabideen esleipena **erabaki** arrazionalen eta koordinatuen arabera egiten dela. eta egiazkoa edireiteko modua? Koro Navarro

Gabeziaren askatasuna azaltzen zuen **erabaki** ezusteko harekin. Joseba Zulaika

Galderak egonezina eman zidan, eta arestiko **erabaki** zigarrorik ez piztekoa ahaztu eta paketea hartu nuen. Bernardo Atxaga

Udaberri partean-edo bilerari berriro ekitea izan zen hartutako **erabaki** bakarra. Anjel Lertxundi

Etorkizunean **erabaki** ezinbestekoa gertatzen bada. Berria - Gaiak

Ba al da horrelako esperimenturik, bi teoria lehiakideen artean erabateko **erabakia** hartzea ahalbidetuko lukeenik? Askoren artean

Nire bat-bateko **erabaki** hark, [...] goitik behera hondatzen omen zizkion bere plan guztiak. Joxe Austin Arrieta

Gipuzkoako Diputazioak iragarri zuen ahal duena egingo duela Luxenburgoko Auzitegiaren balizko **erabakiaren** kalteak murrizteko. Berria - Ekonomia

Uste gabeko **erabaki** horri kontra eraso bat ezarri dio Garzonek berehala. Herria

Abertzaletasun berriaren zutabe ideologikoak hauek ziren: **Erabaki** aldaezin ignaziotarra (San Ignazio egunean sortu zen ETA ere, EAJ bezala); askatasun absolutu sartrearra (begira Txillardegiren *Peru Leartzakoa*ri); eta Aberriaren alde bizitza eskaintzearen juramentu sabindarra (Sabinoren "espiritu neurrigabea" goraipatzen da). Joseba Zulaika

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erabaki-ezintasun hotz-dardarti baten eldarnioa, hain zuzen ere. Joxe Austin Arrieta

Gramatikentzako **erabaki**-prozedura eskaintzen digu. Itziar Laka

Hau esparru kolektiboko kontu bat da, eta **erabaki**-prozesu batzuk behar ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Izan ere transnazionalek, beren **erabaki** ahalmenaren bidez, estatuen araudiei muzin egiteko gero eta aukera handiagoa dute. Iñaki Heras

Bitartean, batzordeak errektoreari **erabaki**-proposamena helarazi eta errektoreak erabaki bitartean, orain arte bezala jarraituko du guztiak. Oskar Arana

Eusko Legebiltzarrak **erabaki** eskubidea baino «proposamen eskubidea» zuela esan zuen. Berria - Harian

Mina, ukoa, **erabaki**-indarra eta onarpena, denak nahasturik nabari zituen ahotsean. Xabier Olarra

Erabakitzeko eskubideari, **erabaki** subjektuei edota subiranotasun ereduari buruzko eztabaida argigarria egin zuten atzo Espainiako Kongresuan. Berria - Harian

Erabaki-, itxaropen- eta beldur-krisialdi bat izan zen, Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Mozkorra beraganantz zihoala, bere oin **erabaki**-finkoen gainean balantzaka. Koro Navarro

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Printze horrexek monarkian onartuak izan ziren espainiarren alde emandako errege-**erabaki** moduko baten bidez, haiei edozein zentsu exijitzea eta lurrak kentzea debekatzen die kondeei. Iñaki Iñurrieta

Arrazoimen transzendente baten botere-**erabaki** baten bitartez esperientziaren ezagutza-iturri imanenteak ezikusten dituelako bere erosotasunaren mesedetan. Ibon Uribarri

Razionalismo huts baten deklarazio-**erabakia**, birdenboran zientzia berriaren interpretazio filosofiko eta oinarriztapen metafisikoa izan nahi duena. Askoren artean

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Nazioarteko merkatuetako elkartrukeen barneratzea **erabaki**-hartze unitate bakarrean, hots, korporazio transnazionala. Iñaki Heras

• **9** *izond* pertsonez mintzatuz, erabakitasunez aritzen dena.

Erabakiak ziren, bai, eta sekula ez zuten amore ematen eragozpenen aitzinean. Alberto Ladron Arana

---

erabakiezin *(orobat **erabaki ezin**) izond* ezin erabakizkoa.

Erabakiezinaz hartzen den erabakia, horrelaxe aurkezten da unibertsala hasieran. Joseba Zulaika

Matematika modernoaren historiak egin zuen set teoria "**erabaki ezina**"; goizetik gauera, matematika osoaren eraikuntza eztabaidagarri bihurtu zen. Joseba Zulaika

---

erabakiezintasun *iz* erabakiezina denaren nolakotasuna.

Aukeratzeko betebeharrak espekulazioaren **erabakiezintasuna** orekatik aterako luke hemen osagarri praktiko baten bitartez, eta arrazoimenak, epaile zorrotzenen gisara, ez luke bertan legeztasunik aurkituko. Ibon Uribarri

Arrazoimena [...] ezin da sotilki asmatutako zalantzen bitartez hainbeste hondoratu, non ezingo bailuke bere **erabakiezintasun** hausnartzaile hartatik atera izadiaren mirakuluari eta mundu-eraikinaren maiestateari egindako begirada baten bitartez. Ibon Uribarri

---

erabakigai *iz* batzar edo kideko batean erabakitzeko dagoen gaia.

Erabakigaiak: Txosten politikoa, alderdiaren Estatutuak eta zuzendaritzaren aukeraketa. Berria - Euskal Herria

---

erabakigarri *(**1.628** agerraldi, **88** liburu eta **1.113** artikulutan; ETCn **15.869** agerraldi)* **1** *izond* zerbait erabakitzeko oinarrizkoa gertatzen dena; erabateko ondoriora eramaten duena. ik **erabakitzaile**.

Hiru boto **erabakigarri**. Berria - Ekonomia

Frantzian eta Ingalaterran, Ehun Urteko gerrak eginkizun **erabakigarria** izan zuen monarkia zentralizatuen eta nazio-nortasunaren osaeran. Koro Navarro

Kargu **erabakigarri** haiek banan-banan Zaldi Ordenako kideengana eskualdatzera eraman zituen flaviotar enperadoreak eta ondorengoak. Iñaki Mendiguren

Isis eta Osirisen gurtza, bizitza espiritual egipziakoan hain paper **erabakigarria** jokatu zuena, desegiten ari zen mundu sumerikoaren oparia zela. Iñaki Mendiguren

Puntu horri dagokionez, Estatu Batuek ez zuten argudio **erabakigarririk** falta: aurrenekoa, argi dago, mundu mailako beste errezesio batek ez ziola inori onik egingo. Koro Navarro

Zuzenbide zibilaren arlo **erabakigarri** bat. Iñaki Mendiguren

Topaketa **erabakigarrian** Mendebaldeko garrantzitsuenak Mendebaldeko munduaren gidaritza italiarrengandik hartua zuten atlantiar kostako itsas herriak izan ziren. Iñaki Mendiguren

Hiru figura historiko erromatar administrazio inperial sekularretik atera ziren, bakoitzak eman ziolarik norabide **erabakigarria** Eliza Katolikoak Mendebaldean izandako bilakaerari. Iñaki Mendiguren

Tyus Edneyren gidaritzapean, eta Jorge Garbajosaren parte hartze **erabakigarri** batekin, Benettonek ez dio ezustekoari inolako tarterik eman. Berria - Kirola

Japonia izan zen errusiarren ahalegin hori sustraitik moztu zuena 1904-5ean erruso-japoniar gerra **erabakigarrian**. Iñaki Mendiguren

Gudu espiritual **erabakigarria** ez zen maila militar edo sozial edo ekonomiko edo intelektualean zertuko. Iñaki Mendiguren

Une **erabakigarrian** dago auzia, baina ezin da krisitzat jo. Berria - Harian

Laurden **erabakigarrian** azken kolpea ematea falta izan zitzaion Tauri Panathinaikosi irabazteko. Berria - Kirola

Azken denboraldietako klub garrantzitsuenak, orain dela urte gehiegi garrantzitsuak izandakoak, eta, nola ez, handienen itzalpean daudenak kolpe **erabakigarria** emateko prest. Berria - Kirola

Ezpata kolpea balitz bezalakoxea izan zen, azkarra eta **erabakigarria**. Felipe Juaristi

Proiektua fase berri eta **erabakigarri** batean sartzear dago. Berria - Kultura

Beren zibilizazioko historian **erabakigarria** iruditzen zitzaien une batean historikoki orientatzeko irrika. Iñaki Mendiguren

Orain puntu **erabakigarria** da norentzat idazten dudan. Berria - Kultura

Europako Batasunak Moskuri luzaroan eginiko presioa **erabakigarria** izan da aferan. gizakien eta populazioen arteko aldaera genetikoak identifikatzea **erabakigarria** baita gaixotasun bakoitzean geneek nahiz ingurumenak duten eragina argitzeko. Berria - Gaiak

Mexikoko Bancomer filialaren emaitza onak **erabakigarriak** izan dira emaitzetan. Berria - Ekonomia

Gobernuaren kudeaketa kaskarrak eragina izan zuen martxoaren 14ko hauteskundeetan, baina ez PPk dioen bezain modu **erabakigarrian**. Berria - Harian

Nedvedek ordu laurden bat falta zela sartutako golak eman zion garaipena Juventusi, eta hurrengo saiorako sailkatzeko aurrerapausu ia **erabakigarria** egin dute italiarrek horri esker. Inazio Mujika Iraola

Hori lortuz, aurrerapauso handia, ia **erabakigarria** emango lukete nafarrek. Berria - Kirola

Beste askotan **erabakigarriak** izan diren baliabideak ez ziren agertu atzo. Berria - Kirola

Eta jokalari bat izan zuten **erabakigarria**: Carew. Berria - Kirola

Del Hornoren lehen gola da denboraldi honetan Espainiako Ligan UEFA Kopan sartu ditu, eta une ezin **erabakigarriagoan** iritsi zen atzo, 46. minutuan. Berria - Kirola

Gogoz jokatu beharko dugu eta Bourgoinen aurka baino **erabakigarriagoak** izan. Berria - Kirola

2 (adizlagun edo kideko baten eskuinean)

Eta ildo horretan datozen lau urteak oso **erabakigarriak** izango direla uste dugu, egiten hasi garen urratsak emaitzak emango dituelako. Berria - Harian

Europako Heineken Kopako sailkapen fasearen amaiera erabat **erabakigarria** izango da Miarritzentzat. Berria - Kirola

Baionak otsailaren 18an partida aski **erabakigarria** jokatuko du Pauen, han irabaziz gero urrats garrantzitsua egingo lukeelako mailari eusteko. Berria - Kirola

Espainiarentzat hain **erabakigarria** den une honetan. Berria - Harian

Azken eguneko erlojupekoak ez dira lehen edo bigarren astekoak bezain **erabakigarriak** izaten. Berria - Kirola

Ez da partida guztiz **erabakigarria** izango, baina giltza hor dago, eta hartu besterik ez dugu egin behar. Berria - Kirola

Jainkoaren batasunaren aldarrikapen espiritualki **erabakigarri** eta etengabe errepikatua. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

erabakigarri bat (16); **erabakigarri batean** (9); **erabakigarri eta** (4); **erabakigarri honetan** (5); **erabakigarri hori** (5); **eta erabakigarri** (5); **jokalari erabakigarri** (6); **partida erabakigarri** (10); **pase erabakigarri** (4); **une erabakigarri** (15); **une erabakigarri honetan** (5)

alde erabakigarria (5); **aldea erabakigarria** (4); **aski erabakigarria** (7); **azken partida erabakigarria** (4); **baina erabakigarria** (6); **bezain erabakigarria** (8); **bezain erabakigarria izan** (5); **botoa erabakigarria** (4); **bultzada erabakigarria** (6); **da erabakigarria** (30); **da erabakigarria izan** (4); **da erabakigarria izango** (7); **dela erabakigarria** (4); **eginkizun erabakigarria** (10); **egun erabakigarria** (4); **entsegu erabakigarria** (9); **entsegu erabakigarria egin** (4)

erabakigarria baita (4); **erabakigarria da** (62); **erabakigarria dela** (17); **erabakigarria den** (9); **erabakigarria du** (7); **erabakigarria dute** (4); **erabakigarria egin** (18); **erabakigarria egin zuen** (8); **erabakigarria eman** (9); **erabakigarria eta** (8); **erabakigarria etxean** (5); **erabakigarria ez** (9); **erabakigarria gerta** (16); **erabakigarria gerta daiteke** (9); **erabakigarria gertatu** (14); **erabakigarria gertatu zen** (13); **erabakigarria gertatuko** (5); **erabakigarria gertatzen** (5); **erabakigarria izan** (274); **erabakigarria izan behar** (5); **erabakigarria izan da** (28); **erabakigarria izan daiteke** (53); **erabakigarria izan daitekeela** (6); **erabakigarria izan daitekeen** (9); **erabakigarria izan dela** (5); **erabakigarria izan zela** (6); **erabakigarria izan zen** (115); **erabakigarria izan zuen** (6); **erabakigarria izanen** (6); **erabakigarria izango** (127); **erabakigarria izango da** (69); **erabakigarria izango dela** (15); **erabakigarria izango den** (5); **erabakigarria izango zela** (4); **erabakigarria izango zen** (4); **erabakigarria izatea** (5); **erabakigarria izaten** (7); **erabakigarria jokatu** (6); **erabakigarria jokatuko** (25); **erabakigarria jokatuko du** (7); **erabakigarria jokatuko dute** (13); **erabakigarria lortu** (5); **erabakigarria lortu zuen** (4); **erabakigarria suertatu** (5); **erabakigarria suertatu zen** (4); **erabakigarria zen** (12)

erabat erabakigarria (4); **eragin erabakigarria** (5); **ere erabakigarria** (15); **ere erabakigarria izan** (7); **eta erabakigarria** (40); **eta erabakigarria izan** (14); **eta erabakigarria izango** (5); **eta hori erabakigarria** (8); **etapa erabakigarria** (5); **ez da erabakigarria** (22); **gerora erabakigarria** (4); **gol erabakigarria** (15); **guztiz erabakigarria** (5); **hain erabakigarria** (8); **hartzea erabakigarria** (4); **hau erabakigarria** (5); **hirugarren partida erabakigarria** (5); **hori erabakigarria** (26); **hori erabakigarria gertatu** (4); **hori erabakigarria izan** (12); **hori erabakigarria izango** (4); **ia erabakigarria** (5); **izan zen erabakigarria** (4); **jarduna erabakigarria** (6); **jardunaldi erabakigarria** (8); **jarrera erabakigarria** (7); **jokalari erabakigarria** (9); **jokalari erabakigarria izan** (4); **jokoa erabakigarria** (8); **jokoa erabakigarria izan** (6); **kolpe erabakigarria** (5); **laguntza erabakigarria** (4); **lana erabakigarria** (33); **lana erabakigarria izan** (27); **lehia erabakigarria** (10); **paper erabakigarria** (4); **partida erabakigarria** (76); **partida erabakigarria da** (4); **partida erabakigarria du** (5); **partida erabakigarria etxean** (5); **partida erabakigarria izan** (4); **partida erabakigarria izango** (5); **partida erabakigarria jokatuko** (13); **pauso erabakigarria** (5); **penalti erabakigarria** (6); **une erabakigarria** (19); **une erabakigarria da** (5); **urrats erabakigarria** (13); **zen erabakigarria** (8)

baino erabakigarriagoa (11); **baino erabakigarriagoa izan** (5); **erabakigarriagoa izan** (14); **erabakigarriagoa izan zen** (9); **erabakigarriagoa izango** (5); **erabakigarriagoa izango da** (4); **erabakigarriagoak izan** (7)

bezain erabakigarriak (5); **botoak erabakigarriak** (6); **botoak erabakigarriak izan** (4); **bozak erabakigarriak** (4); **da erabakigarriena** (4); **dira erabakigarriak** (4); **erabakigarriak dira** (8); **erabakigarriak diren** (4); **erabakigarriak ditu** (5); **erabakigarriak egiten** (4); **erabakigarriak izan** (76); **erabakigarriak izan daitezke** (13); **erabakigarriak izan daitezkeen** (7); **erabakigarriak izan dira** (8); **erabakigarriak izan ziren** (26); **erabakigarriak izango** (39); **erabakigarriak izango dira** (22); **erabakigarriak izango direla** (9); **erabakigarriak izatea** (4); **erabakigarrian gaude** (7); **erabakigarrian sartuko** (4); **erabakigarrian sartuko da** (4); **erabakigarriari ekin** (4); **eta erabakigarriak** (9); **eta erabakigarriak izan** (7); **fase erabakigarrian** (8); **gol erabakigarriak** (6); **hilabeteak erabakigarriak** (6); **hilabeteak erabakigarriak izango** (4); **horiek erabakigarriak** (5); **jokalari erabakigarriak** (9); **jokalaririk erabakigarriena** (7); **modu erabakigarrian** (5); **orduak erabakigarriak** (4); **partida erabakigarriak** (11); **partida erabakigarrian** (9); **partidak erabakigarriak** (6); **une erabakigarriak** (4); **une erabakigarrian** (36); **une erabakigarrian gaude** (5); **urrats erabakigarriak** (6); **urrats erabakigarriak egiten** (4)

alde erabakigarririk (5); **azken txanpa erabakigarrira** (4); **erabakigarrienetako bat** (5); **erabakigarrietan huts** (4); **eta une erabakigarrietan** (6); **jokalari erabakigarrienetako** (4); **jokalari erabakigarrienetako bat** (4); **minutu erabakigarrietan** (7); **partida erabakigarrietan** (5); **txanpa erabakigarrira** (4); **une erabakigarrietan** (39)

---

erabakigarritasun *iz* erabakigarria denaren nolakotasuna.

Ez dudarik izan, gainera, bat egitetik osatzen dugula inoiz garaituko ez duten adorea, indarra, maitasuna eta **erabakigarritasuna**. Berria - Euskal Herria

Bihotza, **erabakigarritasuna** eta Perpinya 14 jokalarirekin geratu izana (54. m.) ongi baliatu izana izan ziren lapurtarren oinarria. Berria - Kirola

Hiru dira gatazkagai puntu nagusiak: lehen ministroa eta lehen ministrordea hautatzeko modua; ministroek norainoko **erabakigarritasuna** izango duten; eta, ipar eta hego Irlandaren arteko elkarlana. Berria - Mundua

ETAren ekimen politikoei **erabakigarritasuna** aitortzen dion txosten nagusiko puntua ere kentzea proposatu du afiliatu honek. Berria - Ekonomia

Churchek 1936an frogatu zuenez, ez da betetzen **erabakigarritasunaren** propietatea; hots, ez dago prozedurarik mekanikoki erabakitzeko formula oro logikoki baliozkoa den ala ez. Askoren artean

---

erabakigile *iz* erabakia hartzen duena.

Horregatik bera da, beti, azkeneko epailea, **erabakigilea**, baita ere ilunduta eta makalduta dagoenean, zeharo itzalita ez dagoen bitartean. Jenaro Garate

---

erabakigune *iz* erabakitzeko gunea.

Orain, aldiz, beste euskaldunengandik banatuta, eta erdaldunekin bat eginda, daude zuberotarrak, eta erdal herrian daukate euren hiriburua eta **erabakigunea**: Oloroen. Koldo Zuazo

Erabakigunea: Osoko Bilkura. Berria - Euskal Herria

Prozesuak atzerrira aldatu arren, **erabakiguneak** Euskal Herrian gelditzea ezinbesteko helburutzat jo zuen Jose Maria Etxarri Ganberako presidenteak. Berria - Ekonomia

Europako Kontseiluko biltzar parlamentarioa ez da **erabakigune** bat, gomendioak eta irizpideak ematen dituen topagunea baizik. Berria - Harian

Eskubide horren gauzapenean, Euskal Herria du **erabakigunetzat**, baina, egungo egoeratik abiatuta, Nafarroa eta EAEren arteko loturak sendotu eta Iparraldean departamendu propioa lortu behar dela uste du, «aurrerago, batasunean erabakitzeko aukera izateko. Berria - Euskal Herria

EBn sartuko den herrialde txikiena izanik, **erabakiguneetan** indarra galtzearen beldur dira herritar asko. Berria - Mundua

Emakume ahotsa **erabakiguneetan**. Berria - Euskal Herria

Dena den, emakumea **erabakiguneetan** ez da egon, galdetutakoen ustez, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, gizonezkoek lanpostu erabakigarrietarako, ohituraz, gizonezkoak deitzea erabakitzen dutelako. Berria - Harian

Zuzendaritza gehienetan gizonezkoak dira nagusi, eta haiek hautatu behar dituzte Eusko Legebiltzarreko **erabakiguneetan** egon behar duten legebiltzarkideak. Berria - Harian

Baina hori ez da krisiaren arrazoi nagusia, sistema politiko demokratiko baten gabezia baizik, zehazki Arafat presidenteak soilik erabakiak hartzea eta **erabakigunea**

partehartzailea ez izatea. Berria - Mundua

Gazteei ez zaie **erabakiguneetarako** sarbidea errazten, eta guk geuk, nagusiok, bizimodua antolatu nahi izaten diegu, menpekoak balira bezala. Berria - Euskal Herria

---

erabakikortasun ik **erabakiortasun**.

---

erabakimen *iz* erabakitzeko ahalmena.

Nahimenaren **erabakimenean** dauka jatorria gaitzak. Imanol Unzurrunzaga

Senadoreak, Kerryk dioenez, bere **erabakimena** eta ahalmen politikoa frogatua du. Berria - Mundua

Espirituaren talentuak (ulermena, asmamena, juzgatzeko gaitasuna) edo tenperamentuaren propietateak (**erabakimena**, intentzioetan tematzea) ontzat har badaitezke ere, ezin dira berez on bezala definitu. Askoren artean

Zalantzaren batek edo bestek erasan zion bere **erabakimenari**. Patxi Zubizarreta

Kemena eta **erabakimena** geroagokoetan era erakutsiko zituen, bai. Edorta Jimenez

Zientzialariek aitortu behar dute gizarte osoari dagokiola **erabakimena**; eurak ez baitira nor (eta ez gauza ere) Zientziaren aplikazioaren eta erabileraren gaineko erabakiak beren kasa hartzeko. Berria - Gaiak

Geure esku ditugu **erabakimena** eta dirua. Joxerra Garzia

Munduaren betierekotasuna atxikitzen dutenen artean badirela **erabakimenari** dagokionez, gure aurka ez dauden batzuk ere, azalduko dugunez. Xabier Kintana

Erabakimenez jarraitu zuen aurrera, neska ukondotik oratuta, frantses orpo garaiekin oholtza ozen zapalduz. Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

EHAK-ko 9 parlamentariek, beraz, **erabakimen** handia izango dute. Berria - Harian

Besterik da, beste ertzean, izpiritua, pertsonaren pertsonalena, pentsamen garbi eta **erabakimen** garbia. Joxe Azurmendi

Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulertuta eta euskal herritar guztien **erabakimen** eta parte-hartze askean oinarrituta. Berria - Harian

Libertatearen arazoak ere biziki kezkatu zuen, **erabakimen** librearenak alegia. Imanol Unzurrunzaga

Gizakiak nahimenaren **erabakimen** librerik ez baleuka, bekatuak kondenatuz eta egintza onak sarituz justizia bere betera daraman ongi hura nolatan izan zitekeen? Imanol Unzurrunzaga

Bere **erabakimen** eskasarekin auziak garbitu ezinik ibiltzeak gogaitu egiten zuen. Patxi Zubizarreta

Kantua bukatu zenean, tupustean eta **erabakimen** handiz, armairu ilun bat zabaldu zuen Anghiosek. Anjel Lertxundi

Konbentzituta geratu ziren, halako **erabakimenez** azaldu zizkien Furrielek arrazoiok. Iñaki Iñurrieta

3 ***erabakimenezko*** *izlag*

Bere hiltzaileen begi zorabiatuei begira, inori ez bezala berari zegozkion Lauaxetaren hitz **erabakimenezkoak**:[...]. Joseba Zulaika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabakimen eta (3); **erabakimen eta parte** (3); **erabakimen librea** (7); **erabakimena eta** (3); **eta erabakimen** (3); **eta erabakimena** (4); **guztien erabakimen** (3); **guztien erabakimen eta** (3); **herritar guztien erabakimen** (3); **nahimenaren erabakimen** (3)

---

erabakimendu *iz* erabakimena.

Oharmen nahimen eta **erabakimendu** osoz, Euskal Herriaren bizi-partaide naiz, eta guztiz aintzakotzat hartzen dut Euskal Herriaren berezko izantza, eta beregain bizitzeko borondatea, egungoa eta etorkizunekoa. Herria

Ez dakit ze burutazio sartu zitzaion Herberti, ez zuen hartaz gehiago hitz egin nahi, berak klimari gogor egingo ziola, **erabakimendu** osoz. Joxe Austin Arrieta

---

erabakior **1** *izond* erabakigarria.

Frantziako Luis XI.ak badu gizon indartsu eta **erabakiorraren** ospea liburuetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez da dudarik, ordea, usaimena dela hor faktore **erabakiorra**. Irene Aldasoro

Keinu **erabakior** bat egin zuen gero, lepoa jasorik, baina, oraingoan, sorbaldak mugitu gabe. Anjel Lertxundi

Zein datu **erabakior** nituen halako izugarrikeria bat adierazteko? Karlos Linazasoro

Ezer esan gabe, Ana mahaira itzuli zen urrats **erabakiorrak** eginez, eta sakelako telefonoa atera zuen bertatik. Aitor Arana

Aulkitik jaiki eta erabaki sendo bat hartu duenaren pauso **erabakiorraz** kanpora doan presentzia bat. Pako Aristi

Lasterketa irakurtzen gutxik bezala daki, eta ihesaldi **erabakiorrean** han izango da jo eta su lanean. Berria - Kirola

«Une **erabakiorraren**» maisua zela esan ohi da, baina berak behin eta berriz baztertu zuen etiketa hau. Berria - Kultura

Erakundearen eragina **erabakiorra** izan daiteke datozen hilabeteotan. Berria - Mundua

Martaren pausoa zuzen, irmo eta **erabakiorra** zen. Harkaitz Cano

Gaurtik aurrera helarazten dituzten mezuak **erabakiorrak** izan daitezke herritarren botoa erakartzeko. Berria - Euskal Herria

Margolariaren geroari begira, 1980-1981ean Hego Ameriketara egin zuen bidaia zen **erabakiorra**. Berria - Kultura

Aimar **erabakiorra** da Valentzian. Berria - Kirola

Bigarren arazoa, orain **erabakiorra**, berebiziko garrantzia duena, lehorreratzeko tokia edo tokiak aukeratzea izango da. Jon Alonso

Bufalo amerikarraren historiako koxkarik garrantzitsuena, **erabakiorrena**, Mississipiaren ekialdeko larreak utzi eta bestaldera iragaitea izan zen. Pako Aristi

2 (adizlagun gisa)

Leirek **erabakior** zuzendu zituen urratsak komunaren ondoko atera. Aitor Arana

Bere ahizpei Nati tiroz hil zutela zirudiela esan ondoren, sukaldetik atera zen **erabakior**. Aitor Arana

Olatzek ezker oinaz atea bultza zuen, **erabakior**. Harkaitz Cano

-Bainugelatik irten, eta telefonoa hartu zuen **erabakior**-: [...]. Anjel Lertxundi

-Prest? -hots egin zuen Ronek, aurpegia zurbil zuela, baina **erabakior**-. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabakiorra izan (4)

---

erabakiortasun *(orobat* ***erabakikortasun****)* *iz* erabakigarritasuna.

Otutzen zait begi lausoz so egiten diogula denari, gure bizimoduaren argitasun eta **erabakikortasuna** azalekoa dela, eta gutako bakoitza mundu zarratua dela, parentesi

artean bizi garela, nire lagun betikomaitea ia ezezaguna bihurtu baitzait berehalakoan. Joseba Sarrionandia

Sortu zitzaion zalantzak ez zuen askorik iraun eta, bere izaeraren ezaugarri nagusia zirudien **erabakiortasunaz**, atea irekitzea pentsatu zuen. Aitor Arana

Nati, eraman erretilu hau sukaldera eta ekarri legatza, mesedez -agindu zion neskameari jarraian, **erabakiortasunez**. Aitor Arana

Halaxe esan diot, baina ez itxuraz nahiko **erabakiortasunez**. Harkaitz Cano

---

erabakitasun 1 *iz* zalantzarik, duda-mudarik ez duenaren nolakotasuna.

Zehazki "ez, ez lagundu" esan zidan, eta ahots leuna zuen arren, halako **erabakitasuna** nabari zitzaion, non eskaintza errepikatzea eragozten zuen. Ramon Saizarbitoria

-Gaur bertan, bai -moztu nion, ez dakit nondik atera nuen **erabakitasunarekin** -. Juan Kruz Igerabide

Erabakitasunaren begi-distirak adierazten zuen, beti, norberaren benetako kemena. Fernando Morillo

Nire **erabakitasunaren** aurrean Okendo harritu egin zelakoan nago, begi abailduetan argi izpi bat nabaritu nion eta. Edorta Jimenez

Tavioren begirada gurutzatu zuen Ruche jaunak, eta **erabakitasuna** irakurri zion begietan. Jon Muñoz

Gure gogoetan eragina izan nahi dute, gure **erabakitasuna** hausteko. Berria - Mundua

Hitzak ahoskatzean erabilitako doinuan **erabakitasunik** eza sumatzen zen, zalantza xumea, galdera. Jose Morales

Izanen ote genuen geure etorkizunaren hautatzeko hautabiderik eta erabakitzeko **erabakitasunik** ...? Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Baina ez du inolako baliorik, ez du inolako baliorik -esan zuen ozenki, eta edozeri buru egiteko **erabakitasun** irmoa sumatu zuen barnean-. Jose Morales

Sortalderantz abiatzeko prestatu zen Ruche jauna, kalkulu diferentziala aurkitzeko **erabakitasun** osoz. Jon Muñoz

-Ederki -erantzun zion McGonagall andereñoak, **erabakitasun** handiz, hura ere atera bideratuz-. Iñaki Mendiguren

Nazio garatuak - **erabakitasun** handiagoaz (EEE-Japonia) edo txikiagoaz (Estatu Batuak)- erronka hori gainditzen saiatu ziren, energia aurrezteko programak eta energia alternatiboak bultzatuz. Koro Navarro

Frantzia eta Espainiako Barne ministroek «terrorismoaren aurkako borrokan batera segitzeko guztizko **erabakitasuna**» daukatela berretsi zuten atzoko bileran. Berria - Euskal Herria

3 ***erabakitasunez*** *(orobat **erabakitasunaz** g.er.)* zalantzarik, duda-mudarik gabe.

"Aspaldi ikusi dudan ederrena!", esan zuen **erabakitasunez**. Bernardo Atxaga

Erabakitasunez, lehen pisuko txirrin guztiak jo zituen. Armairura gerturatu nintzen, ireki eta eraztuna atera nuen **erabakitasunez**. Fernando Morillo

Zela udaberriko giroak odola berotu ziolako, zela atzetik bultzatu zutelako, kontua da **erabakitasunez** jo zuela aurrerantz. Jose Morales

Bake prozesuan aurrera egiteko biharko greba deialdian **«erabakitasunez»** parte hartzeko deia egin zuen atzo Pernando Barrena Batasuneko mahaikideak. Berria - Euskal Herria

Lasai hitz egin nuen, handitasun irrigarriz, eta hitz bakoitza **erabakitasunez** ahoskatu nuen, hitzaldia hasi aurretik dena ere ondo hausnartuta izan banu bezala. Ander Irizar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erabakitasun handiz** (3); **eta erabakitasunez** (4); **ildoan jarraitzeko erabakitasuna** (3); **jarraitzeko erabakitasuna** (4)

---

erabakitsu 1 *izond* erabakimenez betea.

Jende **erabakitsua** da, behar izanez gero hiltzeko gerturik dagoena. Gotzon Garate

Ezohikoa, Idoiak ohituta nindukan adierazpen **erabakitsu** eta oldarkorren aldean. Juan Kruz Igerabide

Pintatzen zuenean bezala jokatzen zuen, arrasto garbi eta **erabakitsuekin**, irudiak argi adieraziz, eta gainerakoa zuri utziz. Juan Kruz Igerabide

Idoiak galderak egiten jarraitu zuen, etengabe, halako jakin-minez, ezen larritu egin nintzen; hain **erabakitsua** izanik nire neska, edozein mementotan Kalkuta aldera abiatuko zitzaidala pentsatu nuen, hantxe Ama Teresarekin bizitzera. Juan Kruz Igerabide

Horrelako ekintzetan erakutsi izan zuen portaerak gizon **erabakitsu** eta kementsuaren ospea ekarri zioten. Edorta Jimenez

2 (adizlagun gisa)

Arretaz, delikadeziaz, baina **erabakitsu**; txokorik ezkutuenetaraino iritsi zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Biak orgatxoen heldulekuen gainera makurtu eta langara abiatu ziren **erabakitsu**, gero eta abiada handiagoan. Iñaki Mendiguren

Badirudi **erabakitsu** datorrela, orain bai. Jon Arretxe

Gizonak **erabakitsu**, jaseko, txairo, makinak bezala doaz. Gotzon Garate

3 erabakigarria.

-Kaixo, lagun, zein da zure apeta? -galdetu zuen ekain amaierako egun **erabakitsu** hartan, ohiko erara, gure animalien arloko espezialistak. Jon Arretxe

---

erabakitzaile *(orobat **erabakizale** g.er.) izond/iz* erabakitzen duena; erabakitzeko ahalmena duena.

Argi da Jaun **erabakitzaile** horiek, emazte eta neska-mutiko gaztetxoak artoski penalizatu eta baztertu dituztela. Herria

Berau ez da existentziara heldu existitu gabe egon ondoren, eta beraz ez du izaki **erabakitzailerik** behar izan. Xabier Kintana

Munduaren osotasuna edo horren atal batek izaki **erabakitzaile** baten premia izanik, horrek frogatzen du mundua sorrarazia izan dela; ez baitu ardura zerorrek horri **erabakitzaile**, eragile, sortzaile, ekoizle, berritzaile edo xedez jardule esatea, horrek guztiak esangura bera besterik ez daukalako. Xabier Kintana

Etorkinek ere «subjektu nazional eta **erabakitzaile** izan behar dute». Berria - Euskal Herria

Unibertsitate **erabakitzailea**, erran nahi baita unibertsitate kondu bere nortasuna osoki finkatua eta segurtatua lukeena, ez beste nunbaiteko unibertsitate baten adar xoil bat. Herria

*Forza Italia*ko batzorde **erabakitzaileko** kide izendatzean. Berria - Mundua

Indarkeriarik gabeko egoera batean elkarrizketa **erabakitzailea** abiatzeko eragile aktiboa izango gara». Berria - Euskal Herria

Gazteen hurbil izateko eskaintzetan, gune **erabakitzaileetan** gazteak izatea beharrezkoa da. Berria - Harian

Felipe Arramendy besteak beste, bulego **erabakitzaileko** idazkari bezala. Herria

Beste kontu bat da kontsulta horrek ez duela botere **erabakitzailerik**. Berria - Euskal Herria

Hala ere, «egitura **erabakitzaileek** laborantza hitzartze egiturako kide batzuen baitan frustrazioa eragitea ulergarritzat» jotzen dute. Berria - Ekonomia

Fase **erabakitzailea**: Alderdien arteko elkarrizketa mahaia. Berria - Harian

Azken lanbide honetan, akademiko askojakinen buruetan, arrazoi **erabakitzailearen** ametsak (edo loak) mustroak sortarazten ditu erremedio gabe. Iñaki Segurola

Patxi Nobliak errepikatzen zuen Garapen Kontseilua (proposatzailea) eta Hautetsien Kontseilua (**erabakitzailea**) ez zirela elkarrekin aski hurbiletik lanean ari. Herria

Zaharretan zaharrenak elkarrizketatzen zituzten, eguneroko kultur ekoizleak, **erabakitzaileak** eta kudeatzaileak. Itxaro Borda

Zuk zeuk izan beharko zenuke zeure patuaren **erabakitzaile**. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan zaitez bada nire asturuaren **erabakitzaile**. Jon Muñoz

Eta gero gauzak **erabakitzaileak** espero ez zuen bidetik joan, eta lagun pila bat han nahastuta. Iñaki Iñurrieta

Izpirituaren auto/nomia horri orain "herriaren inspirazio historikoa" deritzo, eta bera da herriaren destinoen **erabakitzailea** historian. Joxe Azurmendi

Hala ere, inkoherentzia osoa zen, Obragintza Publikoak aholkulari eta **erabakitzaile** funtzioak betetzen zituelako aldi berean izaera juridikorik izan gabe. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erabakitzaile bat (5); **eta erabakitzaile** (3); **eta unibertsitate erabakitzailea** (8); **izaki erabakitzaile** (3); **unibertsitate erabakitzailea** (11)

---

erabakitze *iz* auzitan edo zalantzatan dagoenari buruz erabateko asmoa hartzea edo iritzia ematea.

Aukera bakarra (estatutu jakin bat) eskaintzen zaie, **erabakitzearen** gauzapena –galdeketa- soilik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarrentzat bermatuz. Berria - Euskal Herria

Abertzaleen artean hauexek dira **erabakitzeari** ezetz ematen dioten bakarrak. Berria - Euskal Herria

Maizenik, ordea, poliki-poliki hedatzen diren ideia okerrek [...] aurrera egiten dute oso erraz, **erabakitze** ahalmena duten talde indartsuen interesen aldeko direlako sarritan. Iñaki Heras

Eredu eta **erabakitze** mailaren papera. Xabier Arregi

Diskurtso medikoaren subjektuak zer ditzakeen funtzioen multzoa, hau da, begiratze, galdetze, deszifratze, erregistratze, **erabakitze** funtzioen multzoa. Xabier Arregi

Honelako teoria bati ez dio axola gramatika nola eraiki den, eta, beraz, gramatiken arteko **erabakitze**-prozedura bat eskaintzen duela esan liteke. Itziar Laka

Medikuntza-**erabakitze** instantziaren eta, bestetik, epai-**erabakitze** instantziaren artean. Xabier Arregi

· Nolako edo halako, gure aldetiko ezin **erabakitze** honek ez luke, inolaz ere, narrazioaren gardentasuna lainaje umel batean murgildu behar. Karlos Linazasoro

«Ideia politikoei» eraso dietenak «gure herrian diktadura ezarri eta demokratikoki **erabakitzearen** aurka askatasuna ezabatu» zutenekin parekatu ditu Ibarretxeren gobernuak. Berria - Euskal Herria

Geroa **erabakitzearen** eskubidea -autodeterminazioa- izan daiteke ekintza subirano oinarrizkoa, ez subiranotasunaren eta Estatuaren arteko lotura. Joseba Zulaika

---

erabakitzear *adlag* erabakitzeko zorian.

Tourra erabakita edo **erabakitzear** utz dezakeen etapa da. Berria - Kirola

Europako Konstituzioa **erabakitzear** dagoen momentuan, Europako alderdi ezkertiarrak gutxieneko batzuetan adosteko. Berria - Euskal Herria

---

erabakitzearren *adlag* erabakitzeko.

Hamedataren seme Haman mazedoniarrak juduei kontra egin nahi izan zien; juduak galtzeko agindua eman eta zotz egin zuen, horretarako eguna **erabakitzearren**. Elizen arteko biblia

Zotz egin zuen, juduak hondatu eta suntsitzeko egunik egokiena **erabakitzearren**. Elizen arteko biblia

Ez dut literatura azterketarik hasi nahi hemen, filosofo bikainak bere adierazpenei lotzen zien zentzua **erabakitzearren**. Ibon Uribarri

Baieztapenen gatazka behatzeko edo, are gehiago, bera sortzeko metodo hau, ez azkenean alde baten edo bestearen alde **erabakitzearren**, baizik bere gaia ea agian itxurapen soila ez ote den aztertzearren. Ibon Uribarri

---

erabakitzeke *adlag* erabaki gabe.

Botoa **erabakitzeke** dutenen esku dago bigarren itzulia egitea. Berria - Mundua

Hautesleen milioi eta erdi batek botoa nori eman **erabakitzeke** dutela azaldu zuten atzo inkestek. Berria - Mundua

Generalitateak errentaren gaineko zergen etekinaren zenbatekoa jasoko duen ere **erabakitzeke** dago. Berria - Mundua

Erabakitzeke dago oraindik nola erabiliko diren lur eremu berriak. Berria - Ekonomia

Kanon hori ezartzeko era **erabakitzeke** dagoen arren, liburutegiek erosteko duten ahalmenean eragingo duela agertu dute liburuzainek. Berria - Kultura

Leihotik begirada galduaz uzten dituzu atzean Lutxanako alde biak, itsasadarraren zein alde ote den itsusiena **erabakitzeke**. Urtzi Urrutikoetxea

Erabakitzeke geratzen da ea bere izaeraren beharrezkotasunaren edo askatasunaren bitartez ote den. Ibon Uribarri

Baieztapen analitikoak adimena ez du aurrera bultzatzen, eta bere autugaia jadanik adigaian pentsatua dena besterik ez denez gero, orduan **erabakitzeke** uzten du ea berak bere baitan objektuekin harremana ote duen, edo oro har pentsatzearen batasuna soilik adierazten duen. Ibon Uribarri

Ezin izan zuen, alabaina, heldu eta berehala horrelakorik egin, konpondu beharreko hainbat arazo aurkitu baitzituen **erabakitzeke**. Bego Montorio

Sei txapel daude **erabakitzeke**: gizonezkoen lau diziplinak, eta emakumezkoen sailkapen nagusia eta eslalom erraldoia. Berria - Kirola

Estradizio eskaera, **erabakitzeke**. Berria - Euskal Herria

---

erabakizale ik **erabakitzaile**.

---

erabakizun *iz* hartu behar den erabakia.

Erabakizuna ez zitzaidan-eta batere goxo. Txillardegi

2 *adlag* erabakitzeko.

Ate itxian jo ala, bertzerik gabe, asotsa atereaz neure burua seinalatu, erreklamatuko ninduen unearen aiduru, horra zer gelditzen zitzaidan **erabakizun**. Aingeru Epaltza

---

erabat *(**6.977** agerraldi, **251** liburu eta **1.947** artikulutan; ETCn **61.549** agerraldi) adlag* osoki, guztiz. *(ikus beheko konbinatorian* erabat *adizlagunaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

artean erabat (11); **atea erabat** (10); **aurpegia erabat** (10); **aurrean erabat** (8); **baina erabat** (54); **baina ez erabat** (23); **bat erabat** (27); **batek erabat** (10); **batzuetan erabat** (8); **batzuk erabat** (9); **begiak erabat** (8); **bidea erabat** (9); **bizitza erabat** (20); **burua erabat** (27); **da erabat** (144); **dago erabat** (44); **daude erabat** (17); **dela erabat** (12); **dena erabat** (12); **dira erabat** (40); **direla erabat** (12); **du erabat** (39); **dut erabat** (8); **dute erabat** (17); **edo erabat** (20); **egin zen erabat** (9); **egitasmoa erabat** (8); **egoera erabat** (31); **egoera erabat aldatu** (9)

erabat a (18); **erabat a priori** (16); **erabat ados** (35); **erabat ahaztu** (29); **erabat ahaztua** (10); **erabat ahaztuta** (24); **erabat aldatu** (112); **erabat aldatu da** (17); **erabat aldatu du** (9); **erabat aldatu zen** (22); **erabat aldatu zuen** (8); **erabat aldatua** (9); **erabat aldatuko** (25); **erabat aldatzen** (19); **erabat arbitrarioa** (9); **erabat arbuiatu** (9); **erabat argi** (21); **erabat argitu** (26); **erabat arrunta** (9); **erabat asetzen** (8); **erabat aske** (9); **erabat aurka** (8); **erabat aztoratuta** (9); **erabat baldintzatu** (10); **erabat baldintzatzen** (10); **erabat baztertu** (53); **erabat baztertu zuen** (9); **erabat baztertuta** (19); **erabat baztertzen** (23); **erabat beharrezkoa** (8); **erabat bere** (19); **erabat bereizi** (9); **erabat berria** (26); **erabat berriak** (9); **erabat bestela** (8); **erabat bestelako** (14); **erabat bestelakoa** (22); **erabat bete** (20); **erabat betetzen** (15); **erabat biluzik** (20); **erabat debekatzen** (12); **erabat desagerrarazi** (8); **erabat desagertu** (40); **erabat desagertu zen** (9); **erabat desagertzen** (11); **erabat desberdina** (30); **erabat desberdinak** (26); **erabat desegin** (9)

erabat erre (9); **erabat esanik** (9); **erabat esna** (9); **erabat estaltzen** (11); **erabat eta** (42); **erabat eten** (10); **erabat etsita** (9); **erabat ez** (25); **erabat ezabatu** (12); **erabat ezberdina** (37); **erabat ezberdina da** (12); **erabat ezberdinak** (17); **erabat ezezaguna** (14); **erabat ezinezkoa** (34); **erabat ezinezkoa da** (12)

erabat galdu (44); **erabat galdu ez** (8); **erabat galdua** (21); **erabat galduko** (11); **erabat galdurik** (9); **erabat galduta** (35); **erabat garbi** (20); **erabat gauza** (8); **erabat geldirik** (10); **erabat gelditu** (13); **erabat gezurtatu** (12); **erabat harriturik** (10); **erabat harrituta** (27); **erabat hautsi** (19); **erabat hondatu** (12); **erabat hondatuta** (12); **erabat hustu** (9); **erabat hutsik** (15); **erabat ilundu** (10); **erabat itsu** (11); **erabat itxi** (37); **erabat itxita** (23); **erabat itzali** (10); **erabat izutu** (10); **erabat izututa** (13); **erabat jabetu** (10); **erabat jota** (10); **erabat kanpo** (10); **erabat kaskala** (10); **erabat kendu** (9); **erabat kiskalita** (13); **erabat konpondu** (9); **erabat kontrakoa** (13); **erabat lasai** (13); **erabat libre** (18); **erabat lotu** (8); **erabat lotuta** (11); **erabat lur** (10); **erabat lur jota** (8); **erabat nagusitu** (22); **erabat normala** (13); **erabat oker** (10); **erabat onartezina** (8); **erabat onartzen** (8); **erabat osatu** (26); **erabat osatuta** (13); **erabat politikoa** (13); **erabat pozik** (14); **erabat prest** (9); **erabat sartuta** (19); **erabat seguru** (10); **erabat sendatu** (17); **erabat sinetsirik** (8); **erabat sinetsita** (23); **erabat suntsitu** (43); **erabat suntsituta** (15); **erabat txunditurik** (12); **erabat txundituta** (21); **erabat ukatu** (13); **erabat uko** (9); **erabat ulertu** (8); **erabat ulertzen** (9); **erabat utzi** (18); **erabat utzita** (9); **erabat zabaldu** (15); **erabat zehaztu** (11); **erabat zentzugabea** (9); **erabat ziur** (55); **erabat zoriontsu** (8); **erabat zuzena** (14)

ere erabat (42); **eta erabat** (312); **euskara erabat** (8); **ez da erabat** (53); **ez dago erabat** (22); **ez daude erabat** (10); **ez dela erabat** (12); **ez dira erabat** (20); **ez direla erabat** (10); **ez du erabat** (15); **ez dute erabat** (9); **ez erabat** (70); **ez zegoen erabat** (10); **ez zen erabat** (30); **ez zuen erabat** (13); **ezin da erabat** (8); **gabe erabat** (8); **gaude erabat** (9); **gauza erabat** (9); **gauzak erabat** (14); **gorputza erabat** (11); **guztia erabat** (14); **guztiak erabat** (27); **hau erabat** (31); **hauek erabat** (8); **hori erabat** (70); **horiek erabat** (15); **horrek erabat** (24); **hura erabat** (19); **ia erabat** (122); **ikuspegi erabat** (10); **inoiz erabat** (24); **jarrera erabat** (17); **lana erabat** (9); **modu erabat** (11); **nago erabat** (13); **naiz erabat** (9); **ni erabat** (19); **nintzen erabat** (12); **nuen erabat** (9); **orain erabat** (12); **oraindik erabat** (45); **orduan erabat** (9); **partida erabat** (18); **partidan erabat** (10); **partidan erabat sartuta** (8); **plana erabat** (11); **prozesua erabat** (8); **zegoen erabat** (32); **zela erabat** (10); **zen erabat** (88); **zeuden erabat** (13); **ziren erabat** (19); **zituen erabat** (12); **zitzaion erabat** (9); **zuen erabat** (56); **zuten erabat** (8)

---

erabateko 1 *izlag* osoa; oro harrezkoa.

Erabateko merkatu-legea, %100ekoa, inoiz aplikatu ez denez, ezinezkoa dela horren aplikazioak, neoliberal talibanek dioten legez, mundu honetan bertan paradisu ekonomikoa sortuko duela zehaztea. Iñaki Heras

Sindikatuen arabera, **«erabateko** arrakasta» izan zen; «langileen %90ek greba egin du». Berria - Ekonomia

Erabateko eguzki eklipsea ikusi ahalko dute bihar Brasilen, Afrikako iparraldean, Erdialdeko Asian eta Mongolian. Berria - Gaiak

«Erabateko greba» Donostia, Errenteria eta Irungo TAOn. Berria - Ekonomia

Gizonezkoen langabezia tasa %5etik behera dagoenez, **«erabateko** enplegua» dagoela uste dute planaren egileek. Berria - Ekonomia

David Latxaga Zornotzako alkateak atzo adierazi zuenez, orain artean bezala bere alderdiak kontu horrekin daraman **«erabateko** gardentasun politikarekin» jarraituko du. Berria - Euskal Herria

Hamabost hileko espetxe zigorra, zortzi urteko **erabateko** inhabilitazioa eta auziak sortutako gastuen erdien ordainketa. Berria - Euskal Herria

Aita oso gaixo zegoenean, apiril aldera, amak ezin zuen jada zaindu, eta **«erabateko** baliaezintasuna» eskatu genion Gizarte Segurantzari. Berria - Ekonomia

DUPen helburua, IRAren **erabateko** desarmea izango litzateke. Berria - Mundua

Hona Frantziskok Testamentuan adierazten dituen bizi-proiektuaren ardatz nagusiak: **erabateko** pobrezia (16-17), otoitza (17-18), xumetasuna eta mendekotasuna (19). Askoren artean

Hor du sorrera haren **erabateko** eta sustraietarainoko pobreziak. Askoren artean

Santuak **erabateko** ezetza eman zion, hura deabruaren trikimailua zela eta. Askoren artean

Sortalderantz abiatzeko prestatu zen Ruche jauna, kalkulu diferentziala aurkitzeko erabakitasun osoz, **erabateko** *terra incognita* baitzen hura berarentzat. Jon Muñoz

Erabateko eskema matematiko bat zuten denek begien aurrean. Jon Muñoz

Inongo herrialdek ez du jarraitu **erabateko** ahanzturaren eta **erabateko** zigorgabetasunaren eredu hau. Berria - Harian

Erabateko ongizate fisiko, mental, emozional eta espirituala, eta etengabeko oreka gizakion bizitza osoan. Berria - Gaiak

Ezezkoan ados daude, baiezkoan **erabateko** adostasunik ez dago, ordea. Berria - Harian

Erabateko garaipena zen hura. Jon Muñoz

Erabateko ezustean, hantxe bikien artean estututa aurkitu zen Ruche jauna. Jon Muñoz

Nazioarteko espezializazio hoberena iristeko irizpidea oso bakuna da:ekoizpenaren **erabateko** kostuen konparazioa. Koro Navarro

Saussurek **erabateko** ideia honi eusten dio orain: hizkuntzalariari guztiz premiazko zaio ardatzetan bereizte hori, balio hutsez osaturiko sistema baita hizkuntza. Isabel Arrigain

Alferkeria -edo alfertasuna- aldarrikatu, amodioarekin lotu, edota **erabateko** herritarra edo **erabateko** kontsumitzailea izateko bidea dela esan, kontuak kontu, argi dago enplegurik ez izatea -eta enplegu kaxkarra izatea- arazo larria dela. Iñaki Heras

2 (izenondo gisa)

Philek, ordea, aiseago eramaten zuen hausdura **erabateko** hura. Berria - Kultura

Inplikazio zuzena eta **erabatekoa** behar dugu. Berria - Kultura

Ekoizpen-faktoreak aldagaitzak, konkurrentzia **erabatekoa** eta perfektua, eta etekinak konstanteak edo beheranzkoak. Koro Navarro

Milioi bat dolarreko bizitza-poliza **erabateko** bat saldu nion 1976an, garai hartarako dirutza izugarria. Oskar Arana

Industria bultzatzeko estatuaren egituretan sumatzen den estrategia falta **erabatekoa**. Koro Navarro

Botereari eusteko tentazioa bera ere bai, guztiz onartu gabeko ukapen **erabatekoaren** ondorioz. Askoren artean

Samuel Beckettek edukia forma zela eta forma edukia zela baieztatzerakoan, bien arteko identifikazio **erabatekoaz** mintzo zen. Berria - Kultura

Argi eta hotsezko ikuskizun **erabatekoa**! Jon Muñoz

Naturaren joritasun itogarriaren aurrean, araztasunik aratzena eta sinpletasunik **erabatekoena** bilatu nitian. Jon Muñoz

Hirurogeita bost urtez normal ikusi eta gero gertatu zitzaion, beraz, koloreekiko itsutasun **erabatekoa**, "zuri-beltzeko telebista batean bezala ikustea". Xabier Olarra

Ibarretxe planari adierazitako arbuio **erabatekoak** lagundu dio horretan. Berria - Euskal Herria

Hura izan zen lehena izaki matematiko **erabatekotzat** hartzen angelua. Jon Muñoz

Izu-laborriak jota utzi gintuen porrot ia **erabateko** hark. Xabier Olarra

Halako gaixotasuna, itsutasun psikiko **erabatekoa** (Antonen sindromea esaten zaiona), kasurako, apoplexia baten ondorioz gerta daiteke. Xabier Olarra

Animalia hau ergel **erabatekoa** da. Jon Alonso

Begiei, berriz, atrofia optiko **erabatekoa** nabari zitzaien. Xabier Olarra

Hura bai sekta, **erabatekoa**! Jon Muñoz

Gorputzaren presentzia **erabatekoa** egiten da Moare taldeak aurkeztu berri duen *Gata sombra* dantza eta bideo piezan. Berria - Kultura

3 (izan aditzarekin)

Kolonizazio hori, baina, ez da **erabatekoa** izan, Ekialdeko herrialdeetan bizi diren askok euren kultura eta sinesmenak mantentzen baitituzte. Berria - Gaiak

Inplikazioa **erabatekoa** da eta harreman zuzena dago familiekin. Berria - Harian

Lanuztea **erabatekoa** izan da hiru txandatan. Berria - Ekonomia

Hala ere, lasaitasuna ez zen **erabatekoa** izan. Berria - Ekonomia

Ez zen **erabateko** ustekabea: 1990eko abenduan IRAk, 16 urtetan lehen aldiz, Gabonetako su-etena aldarrikatu zuenean, susmatu nuen eta geroago jakitera eman zen buruzagitza errepublikanoaren eta Londresko gobernuaren artean behin-behineko harremanak izan zirela. Berria - Mundua

Erabatekoa zen isiltasuna, eta ez haustea erabaki zuten. Jon Muñoz

I. jaunaren akromatopsia, hiru hilabeteren buruan ere, **erabatekoa** zen, eta hondamen iraunkorrak zituen kontraste-ikusmenean. Xabier Olarra

Gaur goizeko esperientzia **erabatekoa** izan duk. Jon Muñoz

1994tik Hondaren nagusitasuna **erabatekoa** izan da. Berria - Kirola

Ikusi zuen Sultanak zein **erabatekoa** zen santuak lurreko gauzez zuen mespretxua. Askoren artean

Hirugarren xehetasun bat ere lagungarria da, ikuskizuna **erabatekoa** izan dadin: sailkapen nagusia irekita egotea. Berria - Kirola

Izan ere, eremu horretan osagarritasunaren eraginak **erabatekoa** izan beharko luke. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arte erabateko (5); **artean erabateko** (4); **arteko erabateko** (4); **aurrean erabateko** (4); **baina erabateko** (12); **baita erabateko** (4); **batean erabateko** (4); **da erabateko** (11); **dago erabateko** (7); **du erabateko** (11); **duen erabateko** (4); **dute erabateko** (6)

erabateko adostasuna (12); **erabateko adostasunik** (7); **erabateko adostasunik ez** (4); **erabateko ahalmena** (4); **erabateko aldaketa** (28); **erabateko aldaketa izan** (4); **erabateko aldaketak** (4); **erabateko aldea** (4); **erabateko arbuioa** (4); **erabateko arrakasta** (10); **erabateko arrakasta izan** (4); **erabateko askatasuna** (14); **erabateko askatasunez** (4); **erabateko atsedena** (4); **erabateko babesa** (9); **erabateko balioa** (4); **erabateko batasuna** (4); **erabateko baten** (4); **erabateko borondatea** (6); **erabateko debekua** (4); **erabateko demokrazia** (4); **erabateko desadostasuna** (4); **erabateko desarmea** (12); **erabateko egia** (5); **erabateko eragina** (4); **erabateko errespetua** (8); **erabateko eta** (17); **erabateko ezintasuna** (5); **erabateko gaitzespena** (9); **erabateko garaipena** (11); **erabateko gardentasuna** (5); **erabateko garrantzia** (9); **erabateko gehiengoa** (8); **erabateko hartan** (5); **erabateko haustura** (4); **erabateko hondamendia** (7); **erabateko hura** (5); **erabateko ilunpean** (6); **erabateko independentzia** (7); **erabateko inhabilitazioa** (6); **erabateko inhabilitazioa eskatu** (4); **erabateko isiltasuna** (23); **erabateko isiltasuna egin** (5); **erabateko isiltasunean** (8); **erabateko konfiantza** (14); **erabateko konpromisoa** (4); **erabateko kontrola** (6); **erabateko laguntza** (6); **erabateko lasaitasuna** (11); **erabateko lehentasuna** (7); **erabateko nagusitasuna** (9); **erabateko porrota** (23); **erabateko porrota izan** (10); **erabateko segurtasuna** (5); **erabateko sostengua** (8); **erabateko ziurtasuna** (6); **erabateko ziurtasunez** (5); **erabateko zorionean** (4)

ere erabateko (5); **eta erabateko** (73); **etaren erabateko** (4); **ez dago erabateko** (7); **ez du erabateko** (7); **ez erabateko** (5); **gain erabateko** (4); **guztietan erabateko** (5); **haren erabateko** (7); **herriaren erabateko** (4); **hori erabateko** (4); **horrek erabateko** (4); **ia erabateko** (13); **iraren erabateko** (4); **iraren erabateko desarmea** (4); **nire erabateko** (6); **urteko erabateko** (5); **urteko erabateko inhabilitazioa** (5); **zen erabateko** (6); **zuen erabateko** (6)

adostasuna erabatekoa (6); **akordioa erabatekoa** (4); **aldaketa erabatekoa** (4); **baina ez erabatekoa** (5); **bezain erabatekoa** (5); **da erabatekoa** (21); **dela erabatekoa** (4); **erabatekoa baita** (5); **erabatekoa behar** (4); **erabatekoa da** (46); **erabatekoa da eta** (5); **erabatekoa dela** (16); **erabatekoa egin** (5); **erabatekoa egiten** (5); **erabatekoa eta** (14); **erabatekoa ez** (11); **erabatekoa izan** (90); **erabatekoa izan behar** (4); **erabatekoa izan da** (11); **erabatekoa izan zen** (31); **erabatekoa izango** (12); **erabatekoa izango dela** (4); **erabatekoa zela** (8); **erabatekoa zen** (41); **erabatekoa zuen** (4); **eragina erabatekoa** (5); **erantzuna erabatekoa** (4); **ere erabatekoa** (4); **eta erabatekoa** (21); **ez da erabatekoa** (18); **ez dela erabatekoa** (4); **ez erabatekoa** (5); **ez zen erabatekoa** (10); **falta erabatekoa** (4); **ia erabatekoa** (20); **ia erabatekoa da** (4); **ia erabatekoa izan** (5); **isiltasun erabatekoa** (13); **isiltasuna erabatekoa** (15); **isiltasuna erabatekoa zen** (9); **itsutasun erabatekoa** (4); **koloreekiko itsutasun erabatekoa** (4); **lanuztea erabatekoa** (6); **lanuztea erabatekoa izan** (4); **nagusitasuna erabatekoa** (9); **nagusitasuna erabatekoa izan** (7); **zen erabatekoa** (14); **zen erabatekoa izan** (7)

erabatekorik ezean (4); **isiltasun erabatekoan** (5)

---

erabatekotasun *iz* erabatekoa denaren nolakotasuna.

Baina salaketaren tonuak eta **erabatekotasunak** nekez lor dezake agiriak eskatzen duena eskuratzea. Berria - Euskal Herria

Hitz haien patetismoak eta **erabatekotasunak** zirrara handia eragin zidaten, eta uste izan nuen adin nagusirako bidea mugarritzen zuten auzietako bat zela hura, Errege Magoena edo sexuarena bezala. Bernardo Atxaga

Katedraleko akustikak hankaz gora jartzen du musikariak ahalegin eta kemen handiz sortutako lanaren **erabatekotasuna**. Berria - Kultura

Barbaroen porrotaren **erabatekotasun** izugarriak gizarte- eta politika-mailan paradoxikoki haien bardoen sorkuntza-lanaren arrakasta eragiten du. Iñaki Mendiguren

Egitasmo komun batean bat egiteko akordiorako borondatea **erabatekotasunez** adierazi da bai bileran, baita ondorengo adierazpenetan ere», azaldu zuen ministroak. Berria - Euskal Herria

Ozta-ozta baina **erabatekotasunez**, *Ánimas* haren gorputz potoloa pinaza bien arteko tartean sarrarazi genuen. Edorta Jimenez

---

erabe ik **herabe**.

---

erabelar *iz* patataren familiako landarea, orriak iletsuak eta loreak gainetik horiak eta azpitik gorriak dituena *(Hyoscyamus niger).*

Harrien artean esne-belarra, **erabelarra** eta akamailua hazten ziren, eta eguzkitan belzten ziren musker irisatu handiak. Koro Navarro

Haizeak jandako lauza zahar hauen zirrikituetan, astaperrexil pozoitsua eta **erabelarra** hazten dira. Koro Navarro

---

eraberekotasun *iz* era berekoa denaren nolakotasuna.

Idazle aipatu baten hitzetan, **eraberekotasuna** bikaintasun mota da, izpiritu handiek noizbehinka antzeman eta txikiak, hutsik egin gabe, jipoitu egiten dituena. Andres Urrutia

Orduantxe datoz, berriro ere, legeriaren inguruko **eraberekotasun** ideiak, orduantxe ikusten baita, inoizkorik ederrenean ikusi ere, berori gauzatzeko abagune apartekoa. Andres Urrutia

---

eraberriarazi, eraberriaraz, eraberriarazten du *ad* eraberritzera behartu.

Ez zitzaien gauza bera gertatu bisigodoen legeei: haien erregeek eraberritu egin zituzten, eta kleroari **eraberriarazi** zizkioten. Iñaki Iñurrieta

---

eraberrikuntza *iz* eraberrizea.

Josiasek Judan eginiko **eraberrikuntzak**. Elizen arteko biblia

Adimenaren **Eraberrikuntzarako** Tratatua-rentzat arima natura osoarekin bat egiten duen ezagutzea lortzea da helburua. Piarres Xarriton

---

eraberritu, eraberri(tu), eraberritzen **1** da *ad* itxura edo izaera berria hartu. ik **berriztatu; berritu 2**.

Eraberritu egin ziren Lege Juliarrak, eta indar handiagoa eman zitzaien. Iñaki Iñurrieta

Gu guztiok, aurpegia agerian dugula, Jaunaren aintza islatzen dugu, eta haren irudira ari gara **eraberritzen**. Elizen arteko biblia

Izadi osoa, zure aginduei obedituz, birmoldatua eta **eraberritua** izan zen, zure seme-alabak gaitz orotatik libre gordetzeko. Elizen arteko biblia

Kontenplazioaren bidez gizakiak erabat Jainkoagan murgildu behar du bere ahalmen guztiekin, horrela bere ezereztasuna osorik onartua izan dadin eta **eraberritua**. Joan Mari Lekuona

Zu zeu zoaz, kontenplazioaren bidez, haren jainkotasunaren irudira **eraberritzen**. Askoren artean

Aldizkari berriak agertu eta zaharrak **eraberritu** ziren (Jakin, Zeruko Argia, Anaitasuna...), eta idazleak ere gizarte berriari egokitutako lanak plazaratzen hasi ziren. Koldo Zuazo

Ondoren, **eraberrituta**, eguneroko bizitzaren neke, obligazio, presa eta abarrak zain dauzkan etxerantz abiatzen da. Bernardo Atxaga

2 du *ad* itxura edo izaera berria eman.

Eraikin historikoa ere **eraberrituko** dute arkitektoek. Berria - Harian

Begiak zabal zabalik egona naiz ikustearekin nola **eraberritu** eta apaindu zuten abadia. Herria

Lurgintza **eraberritu** beharrean gaude, baserritarren eskaerei etorkizunean nola erantzungo diegun jakin behar dugu. Berria - Ekonomia

Baserri hura erosi eta **eraberritu** zuten Aian. Iban Zaldua

Nekazaritza azpiegiturak hobetu eta zaharkituak **eraberritu** behar direla dio. Berria - Ekonomia

Herrerako lehen modulu hura **eraberritu** ondoren, laugarren moduluan zeuden euskal presoak sartu zituzten lehen modulu hartan. Jokin Urain

Luis Gizenak **eraberritu** egin zuen ohitura hori. Iñaki Iñurrieta

Sinetsirik nago Jaunak beronen bitartez bere Eliza osoa **eraberritu** nahi duela mundu zabalean. Askoren artean

Autogobernua sendotzeko eginahaletan funtsezkoa jo zuten zapatistek komunitateak **eraberritzea**. Berria - Mundua

Bakarra izanda ere, dena dezake; bera aldatu gabe, den-dena **eraberritzen** du. Elizen arteko biblia

Oi Jainko, **eraberri** gaitzazu, erakutsi guri aurpegi argia, salba gaitezen! Elizen arteko biblia

Errusiako Atzerri ministroak esan du ESKE erabat **eraberritu** behar dela. Berria - Mundua

Nobela honek letra garaikideen panorama errotik **eraberritzen** du, eta kritikak hori hala dela apalkiro baieztatu beste erremediorik ez du izanen. Iñaki Segurola

Pilotalekua bera ere **eraberritzeko** asmoa agertu zuten, gainera, Donostiako Udal Patronatuko arduradunek. Berria - Kirola

Estadioa **eraberritzeko** proiektua aurkeztu zuen atzo Realak. Berria - Kirola

Eta, bat-batean Jaunak **eraberritua**, onberatasun eta otzantasun handiz erantzun zion emazteari: [...]. Askoren artean

3 (era burutua izenondo gisa)

Clermontek talde **eraberritu** eta gaztea du. Berria - Kirola

Aurpegi **eraberrituak** izango zuen itxuraren gainean ere, dudak zeuden. Berria - Gaiak

Batasunaren ekarpen **eraberritua** arretaz eta esperantzaz hartua izan delarik Ipar Euskal Herriako eragile gehienen aldetik. Berria - Euskal Herria

Sagastizabalen istorio **eraberritu** hau Gabilondoren eta Bernuesen opera prima izango da zineman. Berria - Harian

Bestelako edertasuna zuen orain, eta edertasun halakoak maitasun **eraberritua** eta sakonagoa ernaldu zuen nigan bat-batean. Mirentxu Larrañaga

Testu **eraberritua** da. Bernardo Atxaga

Isiltasun kristalezkoa egin zen patio gotiko **eraberrituan**, eta habe zuten kapiteletan mahats-mordoak jateari utzi zioten bat-batean tximinoz mozorroturiko zaharsaridun aspertuxeek. Karlos Linazasoro

Goizeko albistegia Espainiako telebista publiko **eraberrituan**. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eraberritu behar (7); **eraberritu du** (5); **eraberritu egin** (5); **eraberritu eta** (8); **eraberritu nahi** (4); **eraberritu ondoren** (3); **eraberritu zuen** (3); **eraberritu zuten** (6); **eta eraberritu** (4); **eta eraberritua** (3); **guztiz eraberritu** (3)

---

eraberritzaile *izond/iz* eraberritzen duena.

Oinarrian liberala izan arren, Keynesen teoria oso du gogoko planteamendu ezkertiar **eraberritzaileak**, alegia, sozialdemokraziak Bai ingurunearekin bai bere buruarekin izan zuen grina **eraberritzaileak** bazuen prestigiorik, ezertara ez iristera kondenatuta bazegoen ere. sistema hori «zerbitzu berri eta **eraberritzailea** da». Iñaki Heras

Merezi duen egitasmo **eraberritzailerik** ezin onartu eta ezin martxan jar dezakeenez gero. Josu Zabaleta

Husserlen Fenomenologia ulertzeko modu **eraberritzaile** eta errotikakoa. Berria - Kultura

Populismoa nekazari mugimendu **eraberritzaile** bat zen, industrializazioaren eta diruaren kontzentrazio gehiegizkoaren aurkakoa. Xabier Olarra

Ortografia-arauen **eraberritzailea**. frantziar **eraberritzaileen** lanaren arrakasta haien zentzuzko neurritasunari zor izan zitzaiola. Iñaki Mendiguren

Joan Kalbin (1509-64) erlijio **eraberritzailea**, protestantea. Xabier Olarra

---

eraberritze **1** *iz* itxura edo izaera berria hartzea.

Arazoa ez da aurrerantzean izango tradizioa edo arrastoa, baizik eta zatiketa eta muga, ez da izango betikotzen den oinarria, baizik eta sorrera modura eta sorreren berriztatze modura balio duten **eraberritzeak**. Xabier Arregi

Hamaseigarren mendeko Mendebaldeko Kristau Gizartean, nahiz eta Galileoren aroa Tomas Akinokoarenaren orpoz orpo etorri, sumatzen zen aita santuak bakarrik eragin zezakeela, egin zuen bezala, egutegiaren **eraberritzea**. Iñaki Mendiguren

Hain bidezkoak diren kezka horiek munta handiko **eraberritze** bat eragin zuten azkenean, halako konplexutasunekoa [...] non aditu batzuek baizik ez duten bere osotasunean ulertzen. Juan Garzia

Eraberritzea «ezinbestekoa» dela aldarrikatu zuten atzo agintariek. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zuzendaritzan **«eraberritze** sakona» egitea espero duela esan zuen atzo Patxi Zabaleta koordinatzaileak. Berria - Kultura

Azkenean zapuztu zen faltsifikazio haren ondorioak ziren aldaketa hauek guztiak, **eraberritze** alaiok, beste setio bat, inork aurreikusi ezin zezakeen topaketa bat, geldikiro, merkuriozko itsasoko olatu pisuen antzera mugitzen hasten ziren sentimendu batzuk. Jon Alonso

Eraberritze sozioekonomikoa eta ingurumenaren gaineko eragina hobekien onartzen dituena. Berria - Euskal Herria

Azterlan hau idazteko garaian mundu minoikoan erabiltzen ziren idazkeretako bakar bat ere dezifratuta ez egon arren, haien sekuentziak **eraberritze** iraultzailea frogatzen zuen idazteko artean. Iñaki Mendiguren

Astrologiak sinesgarritasunik ez zuen gizarteetan ere, egutegi baten **eraberritze** arrazionala arrakastaz zein kasu gutxitan ezarri den ikusteak erakusten du. Iñaki Mendiguren

Salmoen **eraberritze** fin-fina dugu Ofizio hau, Frantziskoren ñabardurak, zaletasunak eta ikuspegi berezia ageri dituelarik. Askoren artean

Paradoxa dirudien arren, ez zen izan benetako **eraberritzerik**, harik eta hiria estutzen zuten harresiak eraitsi ziren arte. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Finantzabidea osaturik, **eraberritze** proiektua aukeraturik [...]. Berria - Harian

«Nerbioiko ezkerraldearen **Eraberritze** Plana» jarri zuen horren adibide. Berria - Euskal Herria

Korridore estua dago, jatorrizko baseliza eta **eraberritze** obrak egin ostekoaren paramentuak banatzen dituena. Berria - Kultura

Bien bitartean, **eraberritze**-lanak azkar zihoazen. Agustin Otsoa

Senar-emazteek **eraberritze** lanak luze joko zuela aurreikusi zuten, sei hilabete baino gehiago onenean ere. Patxi Iturritegi

Auzotegi txiroen **eraberritze** plana indartuko dute. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eraberritze lanak (5)

---

erabide **1** *iz* eratzeko bidea, garapena.

Mutante asko eta askotarikoak pilatuak ziren berrogeita hamar urtean, eta haietariko zenbaitek argi eta garbi nahasten zuten animaliaren **erabidea**. Juan Garzia

Harrezkero, animalien **erabidean** geneek jokatzen duten papera ulertzean datza mutazio baten baliagarritasuna. Juan Garzia

Beldarrean, intsektu helduaren **erabidea** prestatzen duten zelula multzoak nola doazen desberdinduz. Juan Garzia

Begiaren **erabidearena** da txundigarrienetariko bat. Juan Garzia

Halako eran non adimenaren zati nagusia ari dadin gure Jaunagan pentsatzen, eta bestea gorputzaren sostenguan, horrela taxu eta **erabide** hobea izan dezan behar bezala jokatzeko eta gobernatzeko. Patxi Altuna

2 neurritasuna.

Hain egiazkoa zen begirada hartatik jalgitzen zen adeitasuna non galdu egin bainuen geratzen zitzaidan **erabide** apurra. Joxan Elosegi

Keinuetan ikusten zitzaion **erabide** hura eta, batik-bat, mugitzeko zuen modu klasikoa, dena armonia eta proportzioen batzea. Joxemari Iturralde

---

erabidetsu *izond* neurritsua.

Haien ekintza neurritsua zen, gorpuzkera **erabidetsua** ; hain menperatuak zituzten zentzumen guztiak, ez baitzuten nahi izaten beren asmo santuari zegokiona baizik ikustea edo entzutea: begiak lurrean jarriak eta gogoa zeruan finko izaten zituzten. Askoren artean

---

erabidetu, erabide(tu), erabidetzen du *ad* erabidea eman.

Nikolas Loyseleur-en grazia gogagarria ez zitzaion ez-ohartuan pasatu Beauvaisko apezpikuari, hura Rouen-en Joana Lorenakoaren auzia **erabidetzen** hasi zenean. Juan Garzia

---

erabilaldi *iz* erabiltzen den aldia.

Horregatik, konpromisoa hartu dute Ibilaldia-05 **Erabilaldia** bihurtzeko. Berria - Euskal Herria

---

erabilarazi, erabilaraz, erabilarazten du *ad* erabiltzera behartu.

Ikus bada nola **erabilarazten** duen heriotz-zigorra, sekula baino bortitzago, berdin hobengabeentzat ere, bereziki larruz beltzak direlarik, Euskara ikasi nahi ez duenari begirune osoa zor zaio, eta horrela horrek erdara biak ikasaraz eta **erabilaraz** diezaguke gainerakooi. Herria

Fernando aparta da kopetilunek ezarri oztopoak adar-jotze bilakatzen, Grekoa margolariak teologoek indarrez **erabilarazi** zizkioten gaiak akuilu gisa baliatu zituen bezalaxe, artea eta arima askatu eta biziberritzeko. Markos Zapiain

Magia zuria eta beltza biak egiten omen zituen, esne urdina ematen omen zien behiei eta San Antonioren lagunak erabiltzen zuen bezala **erabilarazten** zien isatsa. Josu Zabaleta

Tom-i gauean begietarako argi-babeski berdeak **erabilarazten** dizkio eta pisuekin ariketak eginarazten, eta Evari olo-morokila janarazten dio. Irene Aldasoro

Euskara ez dakitenei hizkuntzaren ezagutaraztea, ulertaraztea eta ahal den neurrian **erabilaraztea** ! Herria

---

erabilera *(2.216 agerraldi, 122 liburu eta 787 artikulutan; ETCn 41.089 agerraldi)* **1** *iz* erabiltzea, eskuarki erabiltzeko modua. ik **erabilketa; erabilpen**.

Izaera ingenioak neurtzen du, doktrina zientziak, eta **erabilera** emaitzak. Imanol Unzurrunzaga

Erabilera eta eraginak. Berria - Harian

Gauza bat da diruaren iturria, nondik datorren, eta bestea, diruaren **erabilera** , nork eta nola gastatzen duen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zergei buruz eta diru publikoaren **erabileraz** maiz mintzatzen diren gehienak bezala, hiritarra sentitzen da ezer baino lehen. Bernardo Atxaga

Uranio pobretuaren **erabilera** gero eta handiagoa da armagintzan. Berria - Mundua

Adimenaren **erabilerak** emaiten duen plazer kasik erotikoa. Piarres Aintziart

Bioteknologiaren **erabilerak** kezka eragin du gizartean. Berria - Gaiak

Desobedientzia zibilaren **erabilera** proposatzen duen txostena idatzi zuelako, ETAko kide kualifikatua da Zuloaga Garzonen arabera. Berria - Euskal Herria

Harraskan goizeko ontziak garbituko ditut, **erabilerak** suntsitutako esponjarekin. Lander Garro

Legez kanpoko armen **erabilera** ezkutatzeagatik. Berria - Harian

Legez kanpoko armen **erabilera** ezkutatzeagatik. Berria - Harian

Funtsak eta jabetzak izatea Estatuan ondasunen **erabilera** arautzen duten lege zibilak izatea bezain beharrezkoa baita. Iñaki Iñurrieta

Bat-bateko bertsolaritzan, berria da bertso luzeen **erabilera** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Edonola ere, Duvrescu ez zen bereziki iaioa kritika sotilaren edo ironiaren **erabileran** . Iban Zaldua

Maiuskulen **erabilera** ere kutsatzen du zentzu biko irakurketak. Iñaki Arranz

Garrantzi handieneko kontua da beren generoa eta jatorriaren arabera besteetatik ezberdintzen diren ezagutzak bakartzea, eta arretaz saihestea eskuarki **erabileran** lotzen zaizkien besteekin nahaste batean uztar daitezela. Ibon Uribarri

Erabilera asko dituen proteina bat da kolagenoa, tendoietan eta hezurretan ere badagoena. Irene Aldasoro

Hizkuntza gutxituen **erabilera** tokiko administrazioetan: Euskararen **erabileraren** aldeko arrazoiak. Berria - Euskal Herria

Euskararen **erabilera** sustatu nahian. Herria

Euskararen **erabileraren** normalizazioaren kontrako jarrerek pisu handia dute unibertsitateen barruan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hizkuntz formen eta **erabileraren** arteko egokitasunek hizkuntz teoriarentzat eta teoriak sortzen dituen gramatikentzat, gutxi gorabeherako zuzentasun frogak eskain litzakete. Itziar Laka

Hizkuntzaren **erabileran** hain errotuta dauden hitz joko hauek ez ditugu aintzat hartuko. Iñaki Arranz

Hizkuntza baten gramatika hartuta, batek era askotara iker dezake hizkuntzaren **erabilera** estatistikoki; eta hizkuntzaren **erabileraren** eredu estatistikoen garapena (hizkuntzaren egitura sintaktikotik bereizia) emankorra izan liteke. Itziar Laka

Forma estetikoen ezagutza sakon baten **erabilera** konpromisorik gabea. Anjel Lertxundi

Gure aurreko belaunaldiko idazleak ere kapaz izan dira euskarari modernotasun literarioa ekartzeko, gaien aldetik ez ezik, baita hizkuntzaren **erabilera** lotutasunik gabearen bitartez ere. Ana Urkiza

Ontzien eta aparatuen **erabileraz** . Berria - Ekonomia

Zer frogatzen dute erretorikak eta poesiak?; zer, antze horien **erabilerak** ? Iñaki Iñurrieta

Goroldio eta huntzez inguratuta, urtegi bat zegoen; **erabilerarik** gabe geratutako depositua, izatez. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erabilera zuzena eta **erabilera** okerra bereizi behar dira. Berria - Gaiak

Espainiako Gobernuak «diru publikoen **erabilera** bidegabea eta estatu krimena» ez dituela babestuko gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Nolanahi ere, «agirien **erabilera** politikoa» gaitzetsi zuen. Berria - Euskal Herria

De Vosen indar narratiboa eta koloreen **erabilera** zaindua erakusten ditu koadro horrek. Berria - Kultura

Kameraren **erabilera** dotorea egiten du Cvitkovicek, diskrezioz betetakoa. Berria - Kultura

Uraren, hazien eta lurraren **erabilera** komuna erasopean daude. Berria - Mundua

Ez naiz nahigabetzen dirua hartzen duelako, harekin egiten duen **erabilera** gaiztoa susmatzen dudalako baizik. Karlos Zabala

Berria-k ez ditu, berez, eta estilo zuzenean, **erabilera** sexista, xenofoboa edo oro har, baztertzailea duten hitzak erabiltzen. Iurzoruaren **erabilera** soziala eta lurzoru mota guztien gainean aritzeko aukera duela bermatzea. Iñigo Aranbarri

«Erabilera militarrerako 40 tona plutonio» ekoitzi direla salatu zuen atzo Greenpeace talde ekologistak. Berria - Mundua

Taldeetako kirol arduradunen exijentziek eragin zuela EPOaren **erabilera** zabala. Berria - Kirola

Hiztunak 'bitarteko mugatuen **erabilera** mugagabea' (Humboldt-en hitzetan) egiteko duen gaitasunarekin erlazionatzen ditu Chomskyk egitura sintaktikoak. Itziar Laka

Ez dira kontzeptu beraren bi **erabilera** bateraezinak, gehiago dira enuntziatuak eratzeko bi modu. Xabier Arregi

Aditz iragangaitzaren **erabilera** iragankorra. Itziar Laka

Joko hauetako batzuk finkatuta daude hizkuntzaren **erabilera** berezi batzuetan. Iñaki Arranz

Guztiz argi dago, halaber, gramatika teoriaren helburu nagusia intuizioaren **erabilera** ilun honen ordez azterbide objektibo zehatzak lortzea dela. Itziar Laka

Elkartearen arabera, Astillerok **erabilera** terapeutikoa duten produktu horien (AUT) inguruko ikerketa trabatu zuen. Berria - Kirola

Metafisika arrazoimen hutsaren **erabilera** espekulatiboaren eta praktikoaren Metafisikan sailkatzen da. Ibon Uribarri

Erabilera praktikorik ez dauka. Berria - Ekonomia

Indarkeriaren **erabilera** alderdikoiaren salaketa ardatz hartuta. Berria - Euskal Herria

Arrazoimenaren **erabilera** transzendentalean, aitzitik, iritzia izatea gutxiegi da, noski, baina jakitea gehiegi. Ibon Uribarri

Berak, ordea, sindromearen **erabilera** sortzaile nabarmeneko egoera zuen arretagune. Xabier Olarra

Desiragarritzat eta posibletzat aldarrikatu izan da globaltasunaren tokian tokiko **erabilera** eta, aldi berean, tokian tokikoaren **erabilera** globala. Iñaki Heras

Bi erakundeek **«erabilera** askotarako azpiegitura» izendatu duten eraikiniak 1.200 lagunentzat tokia izango du. Berria - Kultura

PVCa **erabilera** askotako materiala da, orokorrean propietate onak eta prezio egokia dituelako. Berria - Gaiak

Laburki aipatu dugu nola iker litekeen lanabes sintaktikoen benetako **erabilera**. Itziar Laka

Bestalde, egiaren ikerkuntza soila izaki jakituriaren **erabilerarik** nobleena, zer dela eta zalantzan jarriko dugu egiaren ikertze hutsak zoriontsu egin dezakeela bizitza? erlijioaren **erabilera** lo-eragingarri eta alienantearekin duen kezka biziari buruz jarduteko. Imanol Unzurrunzaga

Gauzak berezko zentzuan harturik beti ere, ez **erabilera** irudizko, hedatu eta norgauzatuetan. Iñaki Segurola

Bestelako **erabilerak** ere izan ditzake lan honek. Berria - Harian

Hizkuntzaren eta literaturaren ereduzko **erabilerak** onetsi eta asimilatu ditu testuinguru zehatz batzuetan. Iñaki Arranz

Ez da ezta bere balizko **erabilerari** buruzko edo egin ahal izan diren **erabilera** txarrei buruzko galdera ere Ondo dakit nik jakin, definizio hauek ez datozela bat hitzaren eguneroko **erabilerarekin**. Xabier Arregi

Liburu eta Disko Azoka jasotzeko duela zazpi hilabete zabaldutako **Erabilera** Anitzeko Eraikinaren ondoan. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

XX. mendeak eskaini digun lanabes ikaragarri honen **erabilera** kontuetan, atzeraturik gaude Euskal Herrian mende bukaeran. Pello Salaburu

Obran bertan nolabait (**erabilera**-gida baten gisan edo) txertatuta dagoen jakintza bat. Josu Zabaleta

Esanahia, funtsean, erabilera edota **erabilera**-erregelen zerrenda izango da. Askoren artean

Hilak joan hilak etorri, lanak agintzen dizkie, lanok bildu, irakurri eta oharrak idazten dizkie, puntuazio-, ortografia- eta **erabilera**-akatsak zuzentzen, argudio ahulen ondoan galdera-markak ezartzen, idazlan bakoitzari kritika labur eta adeitsu bat eransten. Oskar Arana

Erabilera-eskemek, euretaz baliatzeko arauek, eurek paper bat jokatu ahal izango duten konstelazioek, euren birtualtasun estrategikoek enuntziatuentzako egonkortze-arlo bat osatzen dute. eEuskararen **erabilera** esparru guztietan ziurtatzeko lege babesa behar dela. Xabier Arregi

Enuntziatua, bere materialtasunean sortzen den aldi berean, estatus batekin agertzen da, sareetan sartzen da, **erabilera**-arloetan kokatzen da. Xabier Arregi

Guk oso ondo ezagutzen ez ditugun **erabilera**-ohiturak zituen garai batekoa dela. Santiago Iruretagoiena

Nagusiki **erabilera**-balioaren eta ongizate horretatik sor daitekeen gizarte ehunaren kalitatearen bidean barrena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntza **erabilera**: ordu orotan ahots beheran hitz egin behar da; hizkuntza zibilizatuak onartuta daude; esan nahi baita, alemanera ez. Josu Zabaleta

Egokitasun hauek ikertu egin beharko lirateke, hizkuntz formaren teoria eta hizkuntz **erabileraren** teoria barne-ataltzat biltzen dituen hizkuntz teoria orokor batean. Itziar Laka

Mota honetako gizarte-**erabilerak** gobernuak baino zaharragoak dira; gobernuak, sortu orduko, hasten dira horietaz arduratzen. Iñaki Mendiguren

Bereizi beharko lirateke, jakina, e-mailen enpresa-**erabilera** eta norberarena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kristau-**erabileran** *ecclesia* bai tokiko kristau-elkartea eta bai Eliza Unibertsala adieraztera iritsi zen. Iñaki Mendiguren

Adimenaren adigai hutsen esperientzia-**erabilera** orokorki ahalgarriaren dedukzio transzendentala. Ibon Uribarri

Oinarri-esakune honi bere esanahi subjektiboaren arabera adimen-**erabilera** ahalbait handiena egokiro determinatzea. Ibon Uribarri

Erabilera espekulatiboarekin lotuta dagoen arrazoimen-**erabilera** praktikoaren oinarri-esakuneei jarraiki. Ibon Uribarri

Jakinduriaren egarri den gazteriaren denbora-**erabilera** hobea. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adimenaren erabilera (43); **adimenaren erabilera enpiriko** (4); **administrazioan euskararen erabilera** (20); **armen erabilera** (4); **arrazoimen hutsaren erabilera** (8); **arrazoimenaren erabilera** (59); **arrazoimenaren erabilera enpiriko** (5); **arrazoimenaren erabilera enpirikoaren** (6); **baina erabilera** (9); **baliabideen erabilera** (10); **baten erabilera** (13); **bere erabilera** (59); **bere erabilera espekulatiboan** (4); **beren erabilera** (16); **berrien erabilera** (5); **beste erabilera** (14); **beste erabilera bat** (5); **beste erabilera batzuk** (4); **bi erabilera** (4); **da erabilera** (4); **den erabilera** (10); **du erabilera** (5); **duen erabilera** (17); **duten erabilera** (7); **egiten den erabilera** (4); **egiten duen erabilera** (6); **ehnaren erabilera** (10)

erabilera alderdikoia (12); **erabilera anitzeko** (8); **erabilera arautzeko** (10); **erabilera areagotzeko** (4); **erabilera asko** (11); **erabilera askotako** (8); **erabilera bat** (12); **erabilera batzuk** (5); **erabilera bermatzeko** (10); **erabilera bultzatu** (6); **erabilera bultzatzea** (8); **erabilera bultzatzeko** (14); **erabilera da** (9); **erabilera dela** (6); **erabilera duten** (4); **erabilera edo** (5); **erabilera egiten** (5); **erabilera egokia** (9); **erabilera eman** (6); **erabilera enpiriko** (21); **erabilera enpiriko oro** (4); **erabilera enpiriko soila** (4); **erabilera enpirikoa** (16); **erabilera enpirikoan** (11); **erabilera enpirikoaren** (16); **erabilera enpirikoari** (6); **erabilera enpirikoaz** (6); **erabilera ere** (18); **erabilera erregulatzailea** (4); **erabilera espekulatibo** (5); **erabilera espekulatiboan** (9); **erabilera espekulatiboaren** (5); **erabilera eta** (38); **erabilera ez** (15); **erabilera ez da** (6); **erabilera hau** (6); **erabilera hedatu** (4); **erabilera honek** (4); **erabilera hori** (12); **erabilera horiek** (4); **erabilera horrek** (6); **erabilera horretan** (4); **erabilera huts** (4); **erabilera hutsa** (5); **erabilera hutsaren** (4); **erabilera hutsean** (4); **erabilera izan** (8); **erabilera jakin** (5); **erabilera logikoan** (5); **erabilera murrizteko** (5); **erabilera neurtu** (4); **erabilera normalizatzeko** (22); **erabilera normalizatzeko ii** (8); **erabilera ofiziala** (5); **erabilera okerra** (8); **erabilera okerrak** (6); **erabilera ordaindu** (4); **erabilera oro** (9); **erabilera oso** (5); **erabilera planak** (4); **erabilera politikoa** (11); **erabilera praktiko** (5); **erabilera praktikoan** (8); **erabilera publikoa** (6); **erabilera publikoko** (5); **erabilera publikorako** (6); **erabilera salatu** (6); **erabilera sustatu** (6); **erabilera sustatzea** (7); **erabilera sustatzeko** (39); **erabilera sustatzen** (5); **erabilera terapeutikoa** (16); **erabilera terapeutikoaren** (4); **erabilera terapeutikorako** (11); **erabilera terapeutikorako giza** (5); **erabilera transzendental** (5); **erabilera transzendental soila** (4); **erabilera transzendentala** (10); **erabilera transzendentalean** (9); **erabilera zibilerako** (4); **erabilera zuzena** (4)

ere erabilera (5); **eremuko erabilera** (5); **eremuko erabilera askotako** (5); **eta adimenaren erabilera** (4); **eta bere erabilera** (7); **eta erabilera** (64); **eta euskararen erabilera** (4); **euskalkien erabilera** (7); **euskara erabilera** (4); **euskararen erabilera** (161); **euskararen erabilera arautzeko** (8); **euskararen erabilera bermatzeko** (7); **euskararen erabilera bultzatzeko** (6); **euskararen erabilera normalizatzeko** (20); **euskararen erabilera sustatzea** (6); **euskararen erabilera sustatzeko** (24); **ez erabilera** (6); **gehiegizko erabilera** (4); **gizarte erabilera** (4); **gure arrazoimenaren erabilera** (4); **guztien erabilera** (6); **haien erabilera** (5); **halako erabilera** (4); **haren erabilera** (9); **hau erabilera** (4); **hauen erabilera** (6); **heroinaren erabilera** (4); **hitzaren erabilera** (7); **hitzen erabilera** (5); **hizkuntzaren erabilera** (19); **hizkuntzen erabilera** (6); **honen erabilera** (10); **horien erabilera** (16); **horren erabilera** (18); **hutsaren erabilera** (9); **indarkeriaren erabilera** (10); **indarraren erabilera** (9); **inoiz erabilera** (4); **interneten erabilera** (7); **justiziaren erabilera** (4); **kalamuaren erabilera** (9); **kalamuaren erabilera terapeutikoa** (4); **kanpoko erabilera** (5); **katalanaren erabilera** (4); **kategorien erabilera** (7); **komunikabideetan euskararen erabilera** (10); **landa eremuko erabilera** (5); **lurraren erabilera** (5); **publikoaren erabilera** (5); **teknologia berrien erabilera** (4); **terrorismoaren erabilera** (4); **torturaren erabilera** (8); **umorearen erabilera** (4); **uraren erabilera** (14); **zein erabilera** (5); **zer erabilera** (5); **zuen erabilera** (5)

adimenaren erabileraren (6); **arrazoimenaren erabileraren** (5); **bere erabileraren** (15); **erabilerak ere** (5); **erabilerak eta** (7); **erabilerak ez** (8); **erabilerak ez du** (5); **erabileraren aldeko** (5); **erabileraren aldetik** (4); **erabileraren arteko** (6); **erabileraren gaineko** (4); **erabileraren garapenak** (6); **erabileraren garapenak kostua** (6); **erabileraren inguruan** (7); **erabileraren inguruko** (4); **erabileraren poderioz** (6); **erabilerari buruz** (8); **erabilerari buruzko** (11); **erabilerari dagokionez** (7); **erabilerari uko** (4); **erabileratik at** (7); **erabileratik at uzteko** (4); **eta erabileraren** (16); **eta erabileraren arteko** (4); **eta erabilerari** (4); **euskalkien erabileraz** (4); **euskararen erabilerak** (5); **euskararen erabileran** (6); **euskararen erabileraren** (18); **euskararen erabileraren garapenak** (6); **hizkuntzaren erabilerak** (5); **hizkuntzaren erabileran** (5); **hizkuntzaren erabileraren** (4); **horren erabilerak** (5); **indarkeriaren erabilerari** (6)

erabilerraz *(ETCn **255** agerraldi; orobat **erabilterraz** ETCn **25** agerraldi)* *izond* erraz erabiltzen dena.

Beti-betiko elementuak dauzka: gobernadore izan nahi duen dohakabe **erabilerraza**, kanpaina arduradun eskrupulorik gabea, legeak euren erara egokitzen dituzten eraikitzaile dirudunak, kazetari kuxkuxeroak... Berria - Kultura

Oso tresna **erabilerrazak** dira. Txema Ramirez de la Piscina

Azterketa biokimikorako **erabilerraza** bezain desegokia zen azterketa fisiologikoetarako. Juan Garzia

Webgune **erabilerraza** prestatu du TKEk: [...]. Estatu unibertsal honen barruko hizkuntza irabazlea ez zen izan honela ofizialki ohoraturiko hiruretako bat ere; aramera izan zen, bere idazkera alfabetiko **erabilterrazagoarekin**. Berria - Kirola

---

erabilezin *(ETCn **105** agerraldi; orobat **erabiltezin** ETCn **52** agerraldi, eta **erabiliezin** ETCn agerraldi **1**)* **1** *izond* ezin erabilizkoa.

Gernuari, kondoi jadanik **erabilezina** gehitu nion, hondarreko. Aingeru Epaltza

Erabat **erabilezina** izan ez arren, erabiltzeko egoera kaxkarrean dagoena, adibidez agurea. Xabier Olarra

Giza atari-txakur horien presentziak, ausardiak eta zaintzak ezinbesteko segurtasuna ematen dute, hau gabe bideak, zubiak eta antzerakoak **erabiltezinak** izango liratekeelarik agintari inperialentzat. Iñaki Mendiguren

Golfeko makila herdoilduak, makinaria industrial **erabilezina**, ileordekoz betetako kutxak. Harkaitz Cano

2 (adizlagun gisa)

Hitz horiekin iragarri zuen atzo IRA Irlandar Armada Errepublikanoak borroka armatua utzi eta arma guztiak **erabilezin** utziko zituela. Berria - Harian

Erabilezin utzitako etxeak: 200.000 inguru. Berria - Mundua

---

erabilgai **1** *iz* erabiltzeko gaia.

Moralista gehienek esan ohi dute, bizio deitzen den oro, **erabilgaiaren** aukeraren maukerak ekarri ohi duela. Patziku Perurena

Hobe, ondotik erantsi izan balute, bertute deitzen den oro ere, **erabilgai** berberen eskasiagatik edo akatsengatik deitzen dela bertute. Patziku Perurena

2 (adizlagun gisa)

Ez jokalari guztiekin, baina **erabilgai** dago. Hitzak erabiltzen segitu zuten bakanek kontu handiz aukeratuak zituzten artean ere **erabilgai** zegoen ondare urriaren izpietatik. Berria - Kirola

---

erabilgaitasun *iz* erabilia izateko gaitasuna.

Era batez estimatzen ditu gauzak arrazoimenak eta beste era oso ezberdinez estimatzen ditu **erabilgaitasunak**. Imanol Unzurrunzaga

Erabilgaitasuna gehienetan gauzek eskaintzen dizkioten abantailetara makurtzen da; horrela gertatzen da **erabilgaitasunak** estimatuago izatea batzuetan arrazoimenak apalagoa dela frogatzen duen zerbait. Imanol Unzurrunzaga

---

erabilgaitz *izond* erabiltzen zaila dena, ia ezin erabilizkoa.

Balkanetako auzian, esate baterako, *chetnik* bezalako hitzak jarri ziren modan, *ustachi*... nahiko zailak eta **erabilgaitzak**, begiratu batera. Iñigo Aranbarri

Gramatika hau, baina, hain izango da konplexua, non **erabilgaitza** eta interesgabea izango baita. Itziar Laka

Sentimenaren eta agerpenaren adigaien irakaspen osoa **erabilgaitza** eta hutsala bihurtzen duen faltsuketa da gure sentimen osoa gauzen errepresentazio nahasia besterik ez dela esatea. Ibon Uribarri

Sentimenaren eta agerpenaren adigaien irakaspen osoa **erabilgaitza** eta hutsala bihurtzen duen faltsuketa da gure sentimen osoa gauzen errepresentazio nahasia besterik ez dela esatea. Ibon Uribarri

---

erabilgarri **1** *izond* erabil daitekeena, erabilzeko modukoa.

Haien ustez, urte luzeak (10-15 urte) behar dira oinarrizko ikerkuntzan egin, produktu **erabilgarriak** merkatura atera aurretik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hiztegi txikia baina **erabilgarria**. Askoren artean

"Berezko" bide nagusiak -ibaiak, itsasoak eta estepak- ez baitira komunikabide **erabilgarriak**. Iñaki Mendiguren

Gizarte eragileen aldetik bi dira jakintza **erabilgarriaren** transferentzia eragozten duten hesi edo eragozpen nagusiak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hau aipa daiteke oharpen seguru eta **erabilgarri** gisa: Logika orokorra organon gisa kontsideratuz gero, beti itxuraren Logika dela, h[au] d[a], dialektikoa dela. Ibon Uribarri

Aristotelesen bizitza eta lanaren analisi egokia, zorrotza eta guztiz **erabilgarria**. Askoren artean

2 (izan edo kideko aditzekin)

Ur bero guztiak sendagarriak dira, substantzia arrotzekin batera egosterakoan bestelako abantaila **erabilgarriak** bereganatu dituztelako. Santiago Iruretagoiena

Joan Robinson Nobel sariak zioen bezala, hiri baten planoa ez litzateke batere **erabilgarria** izango 1-1 eskalan jasota egongo balitz. Iñaki Heras

Halako edozein esakune orokor **erabilgarria** da arrazoimen-inferentzia bateko esakune nagusi gisa. Ibon Uribarri

Halako edozein esakune orokor **erabilgarria** da arrazoimen-inferentzia bateko esakune nagusi gisa. Ibon Uribarri

Metodo hori **erabilgarria** gertatu da beste logika batzuetara aplikatzeko ere. Askoren artean

Horrela lortzen da gogo-egoerak publiko eta diskurtso zientifikoan **erabilgarri** izatea. Askoren artean

Estatuak kontrolatzen duen merkatu nazional baten baitan baino ez omen da Keynesen errezeta-liburua **erabilgarri**: [...]. Iñaki Heras

Jatorrizkoaren irakurle ausart batzuei Laburpena **erabilgarri** gerta dakieke obraren argumentu eta egitura orokorra gogoratzeko. Iñaki Mendiguren

Sabai gangatuak fabrikaz egiten badira, askoz ere **erabilgarriagoak** izango dira. Santiago Iruretagoiena

3 (adizlagun gisa)

Horretarako, gure herrian, bizirik eta egunero **erabilgarri** mantendu behar da beste inorena ez den nazio hizkuntza. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hain zuzen ere, **erabilgarri** dauden baliabideak erabiltzeko dauden aukeren artean hobeto esleituko dira. Iñaki Heras

Baina, oro har, ekimenaren akats nagusia kontzeptuala da, oraingoan **erabilgarri** edo eskuragarri dagoen enplegu kopurua da finko hartzen dena. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da erabilgarria (4); **erabilgarri bat** (4); **erabilgarri den** (3); **erabilgarri edo** (3); **erabilgarri eta** (7); **erabilgarri gerta** (3); **erabilgarri gisa** (3); **erabilgarri izan** (13); **erabilgarri izango** (8); **erabilgarri izateko** (3); **erabilgarria da** (16); **erabilgarria dela** (4); **erabilgarria den** (11); **erabilgarria dena** (3); **erabilgarria izan** (20); **erabilgarria izan dadin** (3); **erabilgarria izan daiteke** (6); **erabilgarria izango** (8); **erabilgarria izango da** (3); **erabilgarria izatea** (4); **erabilgarria zen** (3); **eta erabilgarri** (5); **tresna erabilgarri** (3)

aski erabilgarriak (3); **dira erabilgarriak** (10); **erabilgarriak dira** (9); **erabilgarriak diren** (4); **erabilgarriak izan** (7); **erabilgarriak izango** (6); **ere erabilgarriak** (4); **eta erabilgarria** (13); **eta erabilgarria da** (3); **eta oso erabilgarria** (4); **eta oso erabilgarriak** (3); **ez dira erabilgarriak** (7); **gisa erabilgarria** (4); **hain erabilgarria** (3); **oso erabilgarria** (20); **oso erabilgarria da** (4); **oso erabilgarria izan** (5); **oso erabilgarria izango** (3); **oso erabilgarriak** (10); **oso erabilgarriak dira** (7); **oso tresna erabilgarria** (3); **tresna erabilgarria** (9)

erabilgarritasun *(orobat **erabiligarritasun** g.er.)* **1** *iz* erabilgarria denaren nolakotasuna.

Zer da, ordea, utilitatea? Gaztelaniaz duen esanahia kontuan hartzen bada, eraginkortasunarekin edo **erabilgarritasunarekin** lot genezake. Askoren artean

Guraso elebidunengandik Amerikan jaiotako haurrek ez zuten jakiten aiton-amonen italiar ama-hizkuntza, eta, are gehiago, ez zioten **erabilgarritasunik** ere ikusten. Iñaki Mendiguren

Haren *horror vacui*-a, "Todo a 100"-etan **erabilgarritasunik** gabeko objektuak erosteko joera hori. Iban Zaldua

XX. mendeak erakutsi digu jakitearen **erabilgarritasuna**, zientziaren berezko, eta ez diru edo ekonomia kontuetan oinarritutako, ontasuna. Pello Salaburu

Garbi dago txanponaren **erabilgarritasuna** areagotu egiten dela zenbat eta eremu handiagoan izan erabilera legala. Iñaki Mendiguren

Sendotasuna, **erabilgarritasuna** eta edertasuna lortuz egin behar dira horiek guztiak. Santiago Iruretagoiena

Zuhaitzen **erabilgarritasuna** fruituetan bakarrik eskaintzen zaio gizakiari, ala? Imanol Unzurrunzaga

Erabilgarritasunaren ikuspegitik begiratuta, OEHk eskaintzen duen informazio guztia erdaratik abiatuta bilatzeko aukera eskainiko lukeen hiztegia osagarri egokia izango litzatekeela uste du Mujika Iraolak. Berria - Harian

Atrio tetrastiloak angeluetako kolomak ditu habeen azpian, eta horrekin habeek asko irabazten dute **erabilgarritasunaren** eta sendotasunaren aldetik. Santiago Iruretagoiena

Zein izan daiteke bizitzarako arau hobea **erabilgarritasuna** baino, biziza bera handitzea baino? Josu Zabaleta

Erabilgarritasunak, bestalde, eskatzen du lekuen banaketa akatsik gabea eta erabiltzeko inolako trabarik gabea izatea. Santiago Iruretagoiena

Zilbor-hesteko odoletik erauzten diren zelulen **erabilgarritasuna** oso mugatua da gaur egun. Berria - Gaiak

Kapituluek eduki nagusiki praktikoa izan nahi dute, **erabilgarritasunaren** mesedetan, baina aurretik sarrera bat izaten dute beti [...] ondoren etorriko denari oinarri teorikoa emateko asmoarekin. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arkitektura zenbakizko arau eta erregela bidez transmititzeko zuen obsesio hori bere arauen **erabilgarritasun** praktikoaren kalterako izan zitekeela. Santiago Iruretagoiena

Alegazio horien bitartez Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari eskatu diote ez dezala onartu parkearen **erabilgarritasun** publikoko izendapena. Berria - Euskal Herria

Bere autoritate osoa ez duela sortzen inolaz ere legearen beharrezkotasunak, baizik bere **erabilgarritasun** orokor soilak esperientziaren ibilbidean eta bertatik sortutako beharrezkotasun subjektiboak, zeinari berak ohitura deitzen dion. Ibon Uribarri

Soinuaren ozena, urrundik entzuteko modukoa; **erabilgarritasun** handia, hala batetik bestera eramateko nola beso arterako. Koldo Izagirre

Erregelaren orokortasun hertsia ere ez da erregela enpirikoen berekitasuna, izan ere, hauek indukzioaren bitartez orokortasun alderagarria baino ezin dute lortu, h[au] d[a], **erabilgarritasun** zabal bat. Ibon Uribarri

Zaleek futbol zelaia nahi zuten eta hori bakarrik ez, eguneroko **erabilgarritasuna** izango duen zelaia izango da. erabilitako irizpideak hauek izan ziren: lekuaren ezaugarriak, kokapena, argiztapena eta berehalako **erabilgarritasuna**. Berria - Kirola

Saialdi bat egin nahi dugu esakune honen ustezko **erabilgarritasunari** buruz. Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan)

Gaur egun Gipuzkoan dauden zabortegien **erabilgarritasun** epeak agortzear daude, gainera. Berria - Euskal Herria

Nekez froga liteke hizkuntz formaren egiazko ikerkuntzan "esanahiari buruzko intuizioak" **erabilgarritasun** izpirik duenik. Itziar Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere erabilgarritasuna (3); **eta erabilgarritasuna** (4)

---

erabilgo *iz* erabiltzeko ahalmena.

Honela, zer bata bestetik sortzea ez da sekula geratuko, eta bizia inori ez zaio jabegoan ematen, denei **erabilgoan** baizik. Xabier Amuriza

---

erabili *(**20.876** agerraldi, **287** liburu eta **5.865** artikulutan; ETCn **338.367** agerraldi)*, erabil, erabiltzen **1** du *ad* helburu edo egitekoren baterako baliarazi. ik **usatu**.

Hik ez duk betaurrekorik **erabiltzen**? Jon Muñoz

Britainiar Inperioak indiar elitea **erabili** zuen, otomandar padishak Ekialdeko elite kristau ortodoxoa **erabili** zuen bezala. Iñaki Mendiguren

Ama **erabil** zezakeela lekuko gisa, edo Urbiaingo bertze edozein eliztar, osaba Joanikot salatzeko. Joan Mari Irigoien

Agian, haren zaldiak **erabil** genitzakek, nireak beraren herrixkan utzirik. Jose Morales

Ez egin bidegabekeriarik, luzera, pisua nahiz edukiera neurtzeko neurri faltsuak **erabiliz**. Elizen arteko biblia

Txapinak eta gerruntzeak behar dituztenek **erabil** ditzakete. Askoren artean

Kasu honetan erakunde publiko batek diru pribatua **erabiltzen** du. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bide beretik, onartu egingo nituzke euskalkien arabera **erabili** ohi diren jokamolde bereziak. Koldo Zuazo

Horretarako ere **erabiltzen** du, ordea, bere hizkuntza: esaldi eta hitzetan pentsatzen du. Lourdes Oñederra

Aspaldi **erabiltzen** ziren hitzak eta gaur egun galduta daudenak ere ez dago zertan berpizten jardun. Koldo Zuazo

Uste dut gizarte elebidun bat (euskara-gaztelania edo euskara-frantsesa), edo hiru elekoa nahi bada, anitzez ere hurbilagoa dela, eta egingarriago, gaztelania atzendurik euskara eta ingelesa **erabiliko** dituen gizarte bat baino. Pello Salaburu

Hori izango da euskal pentsalarien ekarriaren berri ematean lerro hauetan **erabiliko** dugun oinarrizko irizpidea. Askoren artean

Gauza gutxi batzuk aldatuz gero, metodo bera **erabil** daiteke itsasoz egindako bidea neurtzeko ere. Santiago Iruretagoiena

Margarekin izandako eztabaida, hitz egiteko **erabili** zuen modu zekena, aitzakia izan zen, onartu beharra dut. Ramon Saizarbitoria

Itzulpenerako **erabilitako** testu kritikoak. Askoren artean

Egunero ikusten da hori semiologia etengabe **erabiltzen** den alor batean, publizitatearen alorrean. Josu Zabaleta

Stephenek, bada, beste ahalmen mota bat **erabiltzen** zuen: irudiztapen bizirako ahalmena. Xabier Olarra

Bertako jardunbidea kritikak ideal teologikoan **erabili** duenaren oso antzekoa da. Ibon Uribarri

Bi zentzutan **erabiltzen** ditu ingeniari biomedikoak ingeniaritzaren ideia eta teknikak. Irene Aldasoro

Gaia entzun eta kantuan hasi bitarteko segundoak bukaera on bat pentsatzeko **erabili** baititu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Inaurkinetako **erabiltzen** diren ihi eta garoei. Pello Zabala

Inork ez dezala pentsa, ordea, balio estetiko edo estilistikoen galbahea **erabili** dugunik. Iñaki Arranz

2 irud/hed

Orduan ere mila gauza **zerabilen** buruan, baina ez zen gai gauza asko **zerabilela** pentsatzeko baino. Ramon Saizarbitoria

Buruan bueltaka **bazerabilen**, ez zen gerran ibili izana damu zuelako -bertan galdu zuen guztia kontuan harturik, eta bizitzan porrot egin izana gerrari egotz ziezaiokeen neurrian, ulertzekoa izan zitekeen arren-. Ramon Saizarbitoria

Eta batez ere, **zerabilten** gaiari buruz, profeten libururen batean aipamenen bat aurkitzen bazuten, uste zuten testu berberoriek -edonola ere alegoriaz ulertarazi beharko liratekeenak- **erabil** zitzaketela. Xabier Kintana

Halere, israeldar elkarteak bi haiek harrikatzeko asmoak **zerabiltzan**. Elizen arteko biblia

Oraindik haragia hagin artean **zerabiltela**, biziki haserretu zen Jauna israeldarren aurka, eta izurri ikaragarriz zigortu zituen. Elizen arteko biblia

3 (era burutua izenondo gisa)

Barauak eta bijilia kontuek, kalekoa baino areago jotzen zuten baserritarra: okela, txerrikia eta lukainka jeneroa zen **erabiltsuena** han. "Martxo", "Martia" eta "Epaila" dauzkagu gure euskal parajeotan **erabilientsuenak**. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

bakarrik erabil (12); **bezala erabil** (9); **egiteko erabil** (15); **erabil daiteke** (56); **erabil daitekeela** (10); **erabil daitekeen** (21); **erabil daitezke** (54); **erabil daitezkeela** (8); **erabil daitezkeen** (24); **erabil dezagun** (9); **erabil dezake** (23); **erabil dezakeela** (8); **erabil dezakeen** (8); **erabil dezakegu** (10); **erabil dezakete** (9); **erabil dezan** (14); **erabil dezaten** (11); **erabil ditzagun** (8); **erabil ditzake** (12); **erabil ditzakegu** (12); **erabil ditzakezu** (9); **erabil ez** (8); **erabil ezazu** (10); **erabil liteke** (8); **erabil litezke** (9); **erabil nazazu** (8); **erabil zezakeen** (11); **erabil zezan** (11); **erabil zezaten** (9); **erabil zitekeen** (10); **erabil zitezkeen** (8); **erabil zitzaten** (9); **ere erabil** (36); **ere erabil daiteke** (12); **eta erabil** (10); **gisa erabil** (22); **nola erabil** (8); **soilik erabil** (9)

adierazteko erabili (22); **alde erabili** (8); **aldiz erabili** (20); **amak erabili** (8); **armak erabili** (10); **armarik erabili** (8); **arte erabili** (20); **artean erabili** (17); **asko erabili** (32); **askotan erabili** (23); **aurka erabili** (14); **bakarra erabili** (9); **bakarrik erabili** (19); **baliabide guztiak erabili** (8); **baliabideak erabili** (12); **bat erabili** (109); **bat erabili du** (11); **bat erabili zuen** (20); **bat erabili zuten** (9); **batean erabili** (21); **batzuk erabili** (13); **bera erabili** (46); **bera erabili zuen** (14); **bera erabili zuten** (8); **berak erabili** (25); **berberak erabili** (12); **berean erabili** (8); **berriz erabili** (11); **beti erabili** (22); **bezala erabili** (47); **bezala erabili behar** (8); **bidaiarik erabili** (11); **bidaiarik erabili zuten** (8); **bidea erabili** (8); **buruan erabili** (8); **da erabili** (24); **datuak erabili** (10); **dira erabili** (14); **dute erabili** (10); **edo erabili** (11); **egiteko erabili** (73); **egiteko erabili nahi** (9); **egiteko erabili zuen** (10); **emateko erabili** (10)

erabili ahal (168); **erabili ahal izan** (16); **erabili ahal izango** (51); **erabili ahal izatea** (20); **erabili ahal izateko** (57); **erabili ahalko** (17); **erabili arren** (16); **erabili aurretik** (8); **erabili baitzuen** (8); **erabili behar** (405); **erabili behar da** (31); **erabili behar dela** (15); **erabili behar den** (11); **erabili behar dira** (29); **erabili behar direla** (15); **erabili behar diren** (14); **erabili behar ditugu** (12); **erabili behar dute** (10); **erabili behar izan** (44); **erabili behar izaten** (16); **erabili behar zuen** (9); **erabili beharko** (117); **erabili beharko da** (8); **erabili beharko dituzte** (8); **erabili beharko litzateke** (10); **erabili beharra** (17); **erabili beharrean** (21); **erabili beharreko** (33); **erabili beharrik** (16); **erabili da** (60); **erabili dela** (8); **erabili den** (42); **erabili dira** (27); **erabili diren** (34); **erabili ditu** (96); **erabili ditudan** (15); **erabili dituela** (9); **erabili dituen** (32); **erabili ditugu** (18); **erabili ditugun** (15); **erabili ditut** (23); **erabili dituzte** (84); **erabili dituztela** (11); **erabili dituzten** (26); **erabili dituzu** (8); **erabili du** (158); **erabili dudan** (18); **erabili duela** (20); **erabili duen** (55); **erabili dugu** (26); **erabili dut** (29); **erabili dute** (109); **erabili dutela** (12); **erabili duten** (34); **erabili duzu** (14)

erabili egin (28); **erabili egin behar** (13); **erabili egiten** (20); **erabili ere** (24); **erabili eta** (124); **erabili eta gero** (13); **erabili ez** (55); **erabili ezin** (15); **erabili gabe** (112); **erabili gabea** (9); **erabili gabeko** (23); **erabili genituen** (16); **erabili genuen** (17); **erabili gura** (11); **erabili izan** (270); **erabili izan da** (35); **erabili izan den** (19); **erabili izan dira** (23); **erabili izan diren** (8); **erabili izan ditu** (12); **erabili izan dituen** (11); **erabili izan du** (17); **erabili izan dugu** (8); **erabili izan dut** (9); **erabili izan dute** (17); **erabili izana** (46); **erabili izanak** (13); **erabili nahi** (214); **erabili nahi dituzte** (8); **erabili nahi du** (9); **erabili nahi dute** (13); **erabili nahi ez** (10); **erabili nahi izan** (27); **erabili nahi izatea** (14); **erabili nituen** (21); **erabili nuen** (48); **erabili ohi** (258); **erabili ohi da** (18); **erabili ohi den** (24); **erabili ohi dira** (14); **erabili ohi diren** (20); **erabili ohi ditu** (8); **erabili ohi dituzten** (15); **erabili ohi du** (8); **erabili ohi duen** (10); **erabili ohi duten** (13); **erabili ohi ziren** (9); **erabili ohi zituen** (10); **erabili ohi zuen** (16); **erabili ohi zuten** (13); **erabili omen** (10); **erabili ondoren** (11); **erabili ordez** (8); **erabili zela** (9); **erabili zen** (55); **erabili zirela** (9); **erabili ziren** (37); **erabili zituela** (9); **erabili zituen** (220); **erabili zituen atzo** (8); **erabili zituztela** (12); **erabili zituzten** (123); **erabili zuela** (32); **erabili zuen** (457); **erabili zuen bere** (11); **erabili zuen eta** (9); **erabili zuen hitza** (8); **erabili zuena** (13); **erabili zutela** (17); **erabili zuten** (190); **erabili zuten eta** (8); **erabili zutenak** (9)

eraikitzeko erabili (12); **ere erabili** (122); **ere erabili izan** (20); **ere erabili zuen** (10); **esku artean erabili** (8); **eskuak erabili** (8); **eskubidea erabili** (11); **estaltzeko erabili** (11); **eta erabili** (61); **eta nola erabili** (13); **euro erabili** (12); **euskara erabili** (23); **euskara erabili nahi** (9); **ez erabili** (37); **ezertarako erabili** (8); **ezin da erabili** (12); **ezin erabili** (11); **gabe erabili** (16); **gaizki erabili** (14); **gehiago erabili** (32); **gehien erabili** (21); **gisa erabili** (76); **gisa erabili izan** (8); **gisa erabili nahi** (12); **gisa erabili zuen** (9); **gogoan erabili** (17); **gutxi erabili** (9); **guztia erabili** (8); **guztiak erabili** (37); **haiek erabili** (9); **handiz erabili** (11); **hau erabili** (13); **hitz hori erabili** (8); **hitz horiek erabili** (10); **hitza erabili** (39); **hitza erabili zuen** (12); **hitzak erabili** (26); **hitzak erabili zituen** (10); **hori erabili** (59); **hori erabili zuen** (8); **horiek erabili** (30); **horiek erabili zituen** (10); **horixe erabili** (10); **horretarako erabili** (10); **hura erabili** (17); **indarkeria erabili** (11); **indarra erabili** (17); **inoiz erabili** (22); **irizpide erabili** (10); **izena erabili** (8); **jartzeko erabili** (8); **kontra erabili** (8); **kontzeptua erabili** (9); **lortzeko erabili** (15); **maiz erabili** (10); **mesedetan erabili** (9); **milioi euro erabili** (8); **moduan erabili** (19); **nola erabili** (86); **nola erabili behar** (15); **ongi erabili** (8); **orain arte erabili** (13); **osoan erabili** (8); **publikoa erabili** (8); **sarri erabili** (15); **sekula erabili** (10); **sistema erabili** (14); **soilik erabili** (9); **teknikak erabili** (10); **ugari erabili** (11); **zertan erabili** (15); **zertarako erabili** (10); **zuen erabili** (8)

erabilia da (16); **erabilia eta** (11); **erabilia izan** (37); **erabilia izanen** (9); **erabiliak dira** (10); **erabiliak diren** (9); **erabiliak izan** (16); **ere erabilia** (9); **oso erabilia** (15); **oso erabiliak** (17)

bat erabiliko (25); **bera erabiliko** (21); **bezala erabiliko** (9); **egiteko erabiliko** (34); **erabiliko da** (51); **erabiliko dela** (12); **erabiliko den** (28); **erabiliko dira** (45); **erabiliko diren** (18); **erabiliko ditu** (53); **erabiliko dituela** (14); **erabiliko dituen** (16); **erabiliko ditugu** (22); **erabiliko ditut** (8); **erabiliko dituzte** (69); **erabiliko dituztela** (13); **erabiliko dituzten** (26); **erabiliko dituzten pilotak** (11); **erabiliko du** (83); **erabiliko duela** (18); **erabiliko duen** (31); **erabiliko dugu** (36); **erabiliko dugun** (10); **erabiliko dut** (28); **erabiliko dute** (99); **erabiliko dutela** (24); **erabiliko duten** (26); **erabiliko ez** (14); **erabiliko ote** (9); **erabiliko zituen** (15); **erabiliko zituzten** (8); **erabiliko zuela** (8); **erabiliko zuen** (22); **erabiliko zuten** (11); **ere erabiliko** (19); **eta erabiliko** (13); **euro erabiliko** (21); **euro erabiliko ditu** (9); **gehiago erabiliko** (8); **gisa erabiliko** (14); **guztiak erabiliko** (18); **harri erabiliko** (9); **harria erabiliko** (11); **harria erabiliko dute** (10); **hori erabiliko** (13); **kiloko harria erabiliko** (8); **milioi euro erabiliko** (16); **nola erabiliko** (9); **ordaintzeko erabiliko** (8); **sistema erabiliko** (15); **sistema erabiliko dute** (8); **zertarako erabiliko** (10)

aurka erabilitako (11); **bat erabilita** (16); **bat erabiliz** (36); **batzuk erabiliz** (12); **bera erabiliz** (17); **demokratikoak erabiliz** (13); **egiteko erabilitako** (15); **erabilita ere** (11); **erabilitako argudioak** (15); **erabilitako hitz** (9); **erabilitako hizkera** (8); **erabilitako hizkuntza** (9); **erabilitako ura** (8); **erabiliz egin** (8); **erabiliz egiten** (8); **erabiliz eta** (24); **erabiliz gero** (49); **eta erabilitako** (18); **gisa erabiliz** (20); **guztiak erabiliz** (15); **hitza erabiliz** (8); **hitzak erabiliz** (21); **hizkera erabiliz** (8); **hori erabiliz** (13); **ongi erabiliz** (8)

bat erabiltzea (28); **bezala erabiltzea** (12); **egiteko erabiltzea** (10); **erabiltzea baino** (9); **erabiltzea da** (31); **erabiltzea debekatu** (12); **erabiltzea egotzi** (38); **erabiltzea egotzi dio** (9); **erabiltzea egotzi zion** (19); **erabiltzea erabaki** (33); **erabiltzea erabaki zuen** (10); **erabiltzea ere** (18); **erabiltzea eta** (44); **erabiltzea ez** (24); **erabiltzea ez da** (8); **erabiltzea izan** (10); **erabiltzea leporatu** (27); **erabiltzea leporatu zion** (9); **erabiltzea leporatuta** (8); **erabiltzea leporatzen** (8); **erabiltzea nahi** (8); **erabiltzea proposatu** (9); **erabiltzea zilegi** (10); **erabiltzeak ez** (10); **erabiltzeak ez du** (8); **erabiltzearen alde** (13); **erabiltzearen aldekoa** (8); **erabiltzeaz gain** (11); **eta erabiltzea** (18); **euskara erabiltzea** (14); **ez erabiltzea** (58); **gehiago erabiltzea** (15); **gisa erabiltzea** (29); **hitza erabiltzea** (9); **hori erabiltzea** (14); **indarkeria erabiltzea** (19); **indarra erabiltzea** (13)

armak erabiltzeko (8); **aurka erabiltzeko** (10); **baliabideak erabiltzeko** (8); **bat erabiltzeko** (10); **bezala erabiltzeko** (14); **erabiltzeko asmoa** (12); **erabiltzeko asmoz** (8); **erabiltzeko aukera** (71); **erabiltzeko aukera izango** (10); **erabiltzeko aukerarik** (10); **erabiltzeko baimena** (17); **erabiltzeko esan** (8); **erabiltzeko eskatu** (48); **erabiltzeko eskatu zion** (10); **erabiltzeko eskatu zuen** (8); **erabiltzeko eskubidea** (57); **erabiltzeko eta** (24); **erabiltzeko gai** (15); **erabiltzeko joera** (19); **erabiltzeko konpromisoa** (9); **erabiltzeko modua** (8); **erabiltzeko moduan** (29); **erabiltzeko moduko** (8); **erabiltzeko ohitura** (10); **erabiltzeko prest** (28); **ere erabiltzeko** (9); **eta erabiltzeko** (58); **eta erabiltzeko eskubidea** (14); **euskara erabiltzeko** (35); **euskara erabiltzeko eskubidea** (8); **ez erabiltzeko** (68); **ez erabiltzeko eskatu** (20); **gisa erabiltzeko** (47); **guztiak erabiltzeko** (21); **hizkuntza erabiltzeko** (13); **hori erabiltzeko** (15); **horiek erabiltzeko** (11); **hura erabiltzeko** (11); **indarkeria erabiltzeko** (11); **indarra erabiltzeko** (8); **kontra erabiltzeko** (10)

adierazteko erabiltzen (31); **arabera erabiltzen** (8); **armak erabiltzen** (12); **artean erabiltzen** (19); **asko erabiltzen** (40); **asko erabiltzen da** (10); **askok erabiltzen** (9); **askotan erabiltzen** (24); **ateratzeko erabiltzen** (10); **aurka erabiltzen** (22); **aurre egiteko erabiltzen** (12); **babesteko erabiltzen** (9); **baino gehiago erabiltzen** (8); **bakarra erabiltzen** (8); **bakarrik erabiltzen** (34); **baliabideak erabiltzen** (9); **bat erabiltzen** (87); **bat erabiltzen du** (15); **bat erabiltzen dute** (8); **bat erabiltzen zuen** (11); **batzuetan erabiltzen** (10); **batzuk erabiltzen** (15); **bera erabiltzen** (47); **bera erabiltzen du** (11); **bera erabiltzen dute** (9); **berak erabiltzen** (14); **berbera erabiltzen** (8); **berberak erabiltzen** (14); **berriak erabiltzen** (11); **beti erabiltzen** (15); **bezala erabiltzen** (51); **biltzeko erabiltzen** (10); **buruz erabiltzen** (8); **da erabiltzen** (27); **desberdinak erabiltzen** (8); **dira erabiltzen** (16); **dute erabiltzen** (12); **egiteko erabiltzen** (138); **egiteko erabiltzen da** (12); **egiteko erabiltzen den** (19); **egiteko erabiltzen diren** (20); **egun erabiltzen** (21); **egunero erabiltzen** (20); **emateko erabiltzen** (11)

erabiltzen ahal (13); **erabiltzen al** (11); **erabiltzen ari** (144); **erabiltzen ari da** (28); **erabiltzen ari dela** (16); **erabiltzen ari dira** (30); **erabiltzen ari direla** (13); **erabiltzen ari diren** (8); **erabiltzen ari zen** (8); **erabiltzen bada** (20); **erabiltzen badira** (13); **erabiltzen badu** (10); **erabiltzen baita** (13); **erabiltzen baitira** (8); **erabiltzen baitu** (10); **erabiltzen baitute** (10); **erabiltzen baitzuen** (9); **erabiltzen da** (335); **erabiltzen dela** (41); **erabiltzen den** (309); **erabiltzen dena** (51); **erabiltzen denean** (18); **erabiltzen dira** (181); **erabiltzen direla** (24); **erabiltzen diren** (302); **erabiltzen diren hitzak** (10); **erabiltzen direnak** (36); **erabiltzen direnean** (15); **erabiltzen ditu** (168); **erabiltzen dituela** (24); **erabiltzen dituen** (103); **erabiltzen dituenak** (10); **erabiltzen ditugu** (44); **erabiltzen ditugun** (41); **erabiltzen ditut** (27); **erabiltzen dituzte** (175); **erabiltzen dituzte eta** (8); **erabiltzen dituztela** (42); **erabiltzen dituztelako** (9); **erabiltzen dituzten** (146); **erabiltzen dituztenak** (16); **erabiltzen dituzu** (8)

erabiltzen du (245); **erabiltzen du bere** (8); **erabiltzen dudan** (14); **erabiltzen dudana** (9); **erabiltzen duela** (28); **erabiltzen duelako** (9); **erabiltzen duen** (188); **erabiltzen duena** (26); **erabiltzen dugu** (67); **erabiltzen dugula** (9); **erabiltzen dugun** (69); **erabiltzen duguna** (12); **erabiltzen dut** (28); **erabiltzen dute** (282); **erabiltzen dutela** (31); **erabiltzen duten** (214); **erabiltzen dutena** (26); **erabiltzen dutenak** (27); **erabiltzen dutenek** (9); **erabiltzen duzu** (10); **erabiltzen duzun** (9); **erabiltzen ere** (9); **erabiltzen eta** (49); **erabiltzen ez** (130); **erabiltzen ez den** (15); **erabiltzen ez diren** (8); **erabiltzen genituen** (15); **erabiltzen genuen** (25); **erabiltzen hasi** (78); **erabiltzen hasi zen** (26); **erabiltzen hasi ziren** (11); **erabiltzen hasiko** (9); **erabiltzen hasteko** (14); **erabiltzen ikasi** (11); **erabiltzen jakin** (10); **erabiltzen jarraitzen** (11); **erabiltzen nituen** (9); **erabiltzen nuen** (27); **erabiltzen omen** (28); **erabiltzen ote** (8); **erabiltzen saiatu** (12); **erabiltzen utzi** (8); **erabiltzen uzten** (8); **erabiltzen zen** (109); **erabiltzen zena** (13); **erabiltzen ziren** (81); **erabiltzen zituela** (18); **erabiltzen zituen** (131); **erabiltzen zituena** (8); **erabiltzen zituztela** (16); **erabiltzen zituzten** (90); **erabiltzen zituztenak** (10); **erabiltzen zuela** (27); **erabiltzen zuen** (259); **erabiltzen zuena** (30); **erabiltzen zutela** (11); **erabiltzen zuten** (138); **erabiltzen zutena** (15)

ere erabiltzen (107); **ere erabiltzen da** (21); **ere erabiltzen ditu** (9); **ere erabiltzen dute** (9); **erruz erabiltzen** (12); **estaltzeko erabiltzen** (11); **eta erabiltzen** (67); **eta gehiago erabiltzen** (14); **euroa erabiltzen** (8); **euskara erabiltzen** (26); **ez da erabiltzen** (15); **ez dute erabiltzen** (9); **ezkutatzeko erabiltzen** (8); **gabe erabiltzen** (17); **gaizki erabiltzen** (12); **gaur egun erabiltzen** (16); **gehiago erabiltzen** (50); **gehien erabiltzen** (44); **gehien erabiltzen den** (13); **gehien erabiltzen diren** (11); **gisa erabiltzen** (97); **gordetzeko erabiltzen** (22); **gutxi erabiltzen** (8); **gutxiago erabiltzen** (19); **guztiak erabiltzen** (25); **guztietan erabiltzen** (9); **hasi zen erabiltzen** (8); **hau erabiltzen** (17); **hemen erabiltzen** (9); **hiltzeko erabiltzen** (10); **hitza erabiltzen** (54); **hitza erabiltzen du** (9); **hitza erabiltzen zuen** (8); **hitzak erabiltzen** (20); **hitzetik hortzera erabiltzen** (8); **hizkuntza erabiltzen** (19); **hori erabiltzen** (54); **hori erabiltzen dute** (12); **horiek erabiltzen** (20); **horretarako erabiltzen** (14); **hortzera erabiltzen** (8); **hura erabiltzen** (11); **indarkeria erabiltzen** (28); **irudiak erabiltzen** (10); **izena erabiltzen** (9); **izendatzeko erabiltzen** (21); **jartzeko erabiltzen** (11); **kontra erabiltzen** (15); **lortzeko erabiltzen** (14); **lotzeko erabiltzen** (8); **maiz erabiltzen** (25); **moduan erabiltzen** (31); **modura erabiltzen** (11); **neurtzeko erabiltzen** (8); **nola erabiltzen** (52); **nola erabiltzen den** (12); **nola erabiltzen diren** (8); **normalean erabiltzen** (8); **oker erabiltzen** (12); **ondo erabiltzen** (14); **ordaintzeko erabiltzen** (10); **sarri erabiltzen** (15); **sartzeko erabiltzen** (11); **sendatzeko erabiltzen** (12); **sistema erabiltzen** (13); **soilik erabiltzen** (20); **sortzeko erabiltzen** (10); **zabaltzeko erabiltzen** (8); **zen erabiltzen** (16); **zergatik erabiltzen** (13); **zertarako erabiltzen** (18)

erabiltzera behartu (8); **erabiltzerik ez** (9)

---

erabiliarazi ik **erabilarazi**.

erabilientsu ik **erabili 3**.

erabiliezin ik **erabilezin**.

erabiligarritasun ik **erabilgarritasun**.

erabilkeria *iz* erabilera gaitzesgarria.

Alderdi Komunistako hautagai Nikolai Kharitonovek postuak ematen dion aukeraren **«erabilkeria»** leporatu zion presidenteari. Berria - Mundua

«Ene desengainua adierazi nahi dut, hauteskundeok egin diren moduagatik, komunikabideen alderdikeria eta estatu baliabideen **erabilkeria** barne», esan zuen NATOko idazkari nagusi Jaap de Hoopek. Berria - Mundua

erabilketa *(ETCn **16** agerraldi)* *iz* erabiltzea. ik **erabilpen; erabilera**.

14etan Mintzaldia Guy Sonnois pedagogian zaletuak erranen dauku nola gogo **erabilketa** on batek laguntzen duen ikasgaiaren erran nahia bereganatzen. Herria

700 lagunek segituko dituzte bi eguneko ikastaroak: orotara 31 ikastaro, sail desberdinetakoak, informatika, dantza, antzerki, psikomotrizitate, ipuin, gogo **erabilketa**, eta bertze. Herria

Gogo **erabilketa** jardunaldiak egin beharrak dira irailaren 20an, Hazparnen. Herria

erabilki *adlag ipar* erabiltzen.

Aste huntan, lau egunez segidan, Baionako geltokian, SNCF delakoak muntatu du erakusketa berezi bat, hiriz-hiri **erabilki** duena, puskaketako treinak nun nola dabiltzan. Gauza jakina ere untziak ixuri petrolaki hartarik badela oraino frango uhainek harat eta hunat **erabilki**. Herria

Ziztu gogorrean **erabilki** pilota Irujok baina badu gai Bengoetxeak ere. Herria

Bizkaiko Golko hortan gutienetik hamar mila tona petrolaki badira uhainek **erabilki**! Herria

Gaineratikoa, 20.000 tona edo gehixago, uhainek beti **erabilki**, gutien ustean heltzen ahal oraino Espainiako eta Frantziako kostaldetarat, berrikitan Normandian eta hor gaindi gertatu den bezala. Herria

Petrolaki peza gaitzak badira gure kostaldetik ez hain urrun, uhainek aintzina **erabilki**. Herria

erabilkor *izond* erabilerraza.

Horietaz gain, mendi eta ibarretan aurkitzen den ondare arkeologikoarekin eta ondare **erabilkorrarekin**, hau da, aztarnategietatik industutako materialarekin lan egin du. Berria - Euskal Herria

Egun, kapitalen nondik norakoaren askatasuna indarrean denez, truke-tasa finkoen eta diru politika **erabilkorraren** artean aukeratu beharko dute agintariek, eta beti ere zerbait galduko dute. Iñaki Heras

erabilkortasun *iz* erabilkorra denaren nolakotasuna.

Balizko energia aurrezkia sustatzea eta energia berriztagarrien **erabilkortasuna** nabarmen bultzatzea dira beraien helburu nagusiak. Berria - Ekonomia

erabilmolde *iz* erabilera.

Lege berri eta **erabilmoldeen** berriz ponttuan ezartzeko. Herria

erabilpen *(ETCn **5.235** agerraldi)* **1** *iz* erabiltzea. ik **erabilketa; erabilera**.

Argudio horrekin armen **erabilpena** justifikatuta gelditukо litzateke. Berria - Mundua

Askotan, formula eta ekuazio matematikoen **erabilpenaren** zergatia estetikoa baino ez da izaten, oso preziatua eta sona handikoa izan arren **erabilpen** hori. Iñaki Heras

Berak ez du eratzen batasun erretoriko edo formal bat, amaigabe errepika daitekeena eta bere agerpena eta historian egiten den bere **erabilpena** zehaztu daitekeena. Xabier Arregi

Geroari buruz Herriko Etxeak ez du argitu nolako **erabilpena** emanen dion etxeari. Berria - Kultura

Mikrokrediten **erabilpena** zabaltzea eta estatu garatuenetan lan egiten duten afrikarrek euren herrialdetara bidaltzen dituzten diruketei fiskalitate trabak arintzea. Berria - Mundua

Garraio pribatuaren aldean garraio publikoen **erabilpena** sustatzen dutenena. Iñaki Heras

Berdintasunerako Legea eta 49.3 legearen **erabilpena** ozenki kritikatuz. Berria - Ekonomia

Herrialde jakin batenak diren baliabideen **erabilpena** arrazionalizatzeko beharrak. Iñaki Heras

Gure eskualdean, toxikomania, HIESA, setsualitate problemak, depresioak, suizidioak, alkohola, tabako eta drogen **erabilpena** kezkagarriak baitziren, indarrak egitea erabaki zuten, jadanik diren elkarteekin lana emendatuz. Herria

Petrolioaren **erabilpenak** dakartzan arazo ekologikoak hortxe daude: lurraren beroketa, negutegi efektua... Berria - Gaiak

Izan ere, liburuaren bertze parte batean aipatu dizut, hitzen **erabilpenaz** ari nintzaizula eta sagar hitzaz zehazki. Joan Mari Irigoien

Euskal-Herrian Euskaraz taldeak ikertu du artoski euskararen **erabilpena** nolakoa izan den joanden martxoko bozetan. Herria

Erabilitako hitzak, **erabilpeneko** arauak, adierazten duten eremu semantikoa eta guzti, edo, gehiago oraindik, proposizioen egitura formala eta batzen dituen kateatze-motak. Xabier Arregi

Legeek indarra dute beste lege batzuek indargabetu edo **erabilpenik** gabe utzi arte. Andres Urrutia

Erabilpenik gabe zeuden egoitza militarrak, hotel zaharrak, eskolak iheslarientzat bizileku bihurtu zituzten. Jokin Urain

Soilik bide politikoen **erabilpenaren** alde gaudelako ari gara eta ariko gara gune horretan parte hartzen. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aurrez dakigu elkarrizketan esango denaz **erabilpen** txarra egingo dutela, edozein izanik ere elkarrizketaren emaitza. Jokin Urain

Substantzia bera ez da arazoa, substantziaren **erabilpen** okerra baizik. Berria - Euskal Herria

Haurrak leku guztietan izaten dira gerrako bahituri, truke edo **erabilpen** ankerretarako gai preziatu. Jokin Urain

Zuk zeuk besteei ukatzen diezun askatasunaren **erabilpen** bitxia egiten duzu. Xabier Arregi

Mendebaldeko herrialdeek baliabideen **erabilpen** arrazional eta aurrezkizkoa egitea, herrialde desfaboratuenek bere oinarrizko beharrak asetzeko beharrezko hazkundea iritsi ahal izan dezaten. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez da formula gehiagorik aurreko lau erregela horien **erabilpen** finitutik sortuak direnetatik kanpo. Askoren artean

Teknikaren aurrerapen horiek aukera ematen dute baliabideetara iritsi eta gero eta gehiago ateratzeko, eta **erabilpen** intentsibo horrek oinarri naturalaren hondatze bizkorrago bat eta kapital naturalaren deskapitalizazioa dakarkigu hurrena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Werner energia atomikoaren **erabilpen** militarren inguruan jardun zitzaidan. Fernando Morillo

Fribolitate erromantikotik urrun, hizkuntzaren **erabilpen** soziala bultzatu behar da. Joseba Zulaika

Erabiltzea, zerbait nahimenaren esku uztea da; gozatzea **erabilpen** gozatsua da, ez itxaropenaren pozaz, errealitatearenaz baizik. Imanol Unzurrunzaga

Kontua da jakitea nola esperientzia esparru batek, dagoeneko kokatua, dagoeneko neurri bateraino artikulatua, baina berehalako **erabilpen** praktikoz edo balioespen eraginkorrez zeharkatua, osatu ahal izan duen eremu zientifikoa. Xabier Arregi

Dialektika mitologikoaren azaleko **erabilpena** baino ez da. Berria - Kirola

Alda daitekeen astuntasun batez hornitua dago, pisu erlatibo batez bera kokatuta dagoen arloaren araberakoa den pisu batez, **erabilpen** ezberdinak baimentzen dituen jarraitasun batez. Xabier Arregi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erabilpen maiztasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez al dut nik aldarazi nire azterketa edo bere **erabilpen** -puntua lekuz aldatzen nuen neurrian, enuntziatu bera begien bistatik ezkutatzen zitzaidan neurrian? Xabier Arregi

Materialtasuna (ez dena substantzia bakarrik edo artikulazioaren euskarria, baizik eta estatutua, transkribatze-arauak, **erabilpen** eta berrerabilpen aukerak). Xabier Arregi

Enuntziatu bat existitzen da bera atzera berragertzeko ahalbidetik at; eta berak enuntziatzen duenarekin duen harremana ez da **erabilpen** arau-multzo baten berdin-berdina. Xabier Arregi

Enuntziatu-mota bat **erabilpen** -eremu batetik bestera transferitzeko modua. Xabier Arregi

Diskurtso ugariren artean deskriba daitezke batak bestea mugatzen duten harremanak, bakoitzak bereak egiten dituelarik bere singulartasunaren seinale bereizgarriak, diferentziatuz bere eremua, bere metodoak, bere tresnak, bere **erabilpen** esparrua. Xabier Arregi

Harreman hauek markatuz muga daitezke eremu batetik besterako zirkulazioa aseguratzen duten bideak, eta baita aseguratzen dutenak ere lekualdatzea, kontzeptuen aldaketak, euren formaren edo aldaketaren **erabilpen** -arloa. Xabier Arregi

Kkoalizioari eskatzen diogu bertan behera utz dezala giza-laguntza beren helburu militar eta politikoak lortzeko **erabilpen** jarduera oro. Berria - Mundua

Azkenik jakite bat definitzen da diskurtsoak eskaintzen dituen **erabilpen** eta eskuratze aukeren bidez. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere erabilpen (4); **da euskararen erabilpena** (3); **erabilpen arloa** (3); **erabilpen handiago** (4); **erabilpen handiago bat** (3); **erabilpen hori** (4); **erabilpena arautzeko** (3); **erabilpena bultzatu** (4); **erabilpena bultzatu behar** (3); **erabilpena ere** (3); **erabilpena eta** (3); **erabilpena ez** (3); **erabilpena neurtzeko** (3); **erabilpena neurtzeko diagnostika** (3); **erabilpena sustatzea** (4); **erabilpena sustatzeko** (7); **erabilpena sustatzen** (4); **erabilpenari buruzko** (3); **erabilpenaz denaz** (3); **erabilpenaz denaz bezainbatean** (3); **erlijio ikurren erabilpena** (3); **eta erabilpen** (6); **eta erabilpena** (3); **eta euskararen erabilpena** (3); **euskararen erabilpen** (15); **euskararen erabilpen handiago** (4); **euskararen erabilpena** (81); **euskararen erabilpena neurtzeko** (3); **euskararen erabilpena sustatzea** (4); **euskararen erabilpena sustatzeko** (6); **euskararen erabilpena sustatzen** (3); **euskararen erabilpenari** (3); **euskararen erabilpenaz** (6); **ikurren erabilpena** (3); **lurraren erabilpena** (3); **publikoetan euskararen erabilpena** (3)

---

erabilterraz ik **erabilerraz**.

---

erabiltezin ik **erabilezin**.

---

erabiltsu ik **erabili 3**.

---

erabiltzaile *(**440** agerraldi, **33** liburu eta **220** artikulutan; ETCn **19.528** agerraldi; orobat **erabiltzale** ETCn **3** agerraldi)* **1** *iz* adierazten dena erabiltzen duen pertsona.

Egia da, izan, berak gutxi idatzi zuela euskaraz; zirikatzaile eta bultzatzaile izan zen, **erabiltzaile** baino gehiago. Koldo Zuazo

Atari elektroniko horretan sartuz gero, **erabiltzaileek** Sorosi galderak egiteko aukera ere badute. Berria - Mundua

Kontsumitzaileak eta **Erabiltzaileak** Babesteko legea onartu zuen herenegun Espainiako Gobernuko Ministroen Kontseiluak. Berria - Euskal Herria

Erabiltzaileei begira diseinatu du Moneok Deustuko liburutegi berria. Berria - Kultura

Librea da **erabiltzailea** fotokopiak atera edo nahi duena egiteko. Berria - Kultura

Gauza bat baita baliabideak jartzea (baliabideak publikoak nahiz pribatuak izan daitezke) eta beste bat baliabide horiek erabiltzea (**erabiltzaileak** ere publikoak nahiz pribatuak izan baitaitezke). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Iaz 211.509 **erabiltzaile** izan zituzten atarian, eta 200 albiste inguru argitaratu zituzten. Berria - Gaiak

Guztira, 53.000 **erabiltzaile** utzi zituen Iberdrolak argi barik Bizkaian elur ekaitzaren ondorioz. Berria - Harian

Liburua maileguan hartzen duen **erabiltzaileak**. Berria - Kultura

Azken bolada honetan milaka kreditu txartel bikoiztu dituzte Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako kutxazainetan; **erabiltzaileen** elkarteak «oso kezkatuta» daude. Berria - Harian

Autobusetan: **erabiltzaileen** kopurua %5ean igo bazen ere, irabazia %4,2 baino ez zen igo. Berria - Euskal Herria

Erosketa bidezko zergak ordaintzen dituzte, banketxe edo kutxetan kontuak dauzkate, zor txartelak denda eta saltoki handietan, eta Osasun edo Justizia egituren **erabiltzaile** dira. Berria - Harian

Oraingo honetan ez zaio inporta izan ingurumena, ez bere eraikinen **erabiltzaileen** ongizatea, ezta bere obrak gizarteari ekarriko dion ustezko onura ere. Patxi Iturritegi

Ordenagailu bat kutsatu ahal izateko **erabiltzaileak** birusak bidalitako mezu elektronikoa ireki behar zuen. Berria - Gaiak

Euskotrenen **erabiltzaile** kopurua %7,81 igo da: 2004an 9,6 miloi lagunek erabili zuten zerbitzua eta iaz 10,4 milioi izan ziren. Berria - Euskal Herria

Auzoko Txarteldegia programaren **erabiltzaileak** ezaugarri hauek ditu: 30 eta 50 urte bitarteko emakumea da, goi mailako ikasketak ditu eginak, eta langilea da. Berria - Kultura

Sufrimenduaren monopolioa ere kasu honetan Windowsen **erabiltzaileek** dute. Berria - Ekonomia

Erabiltzaileari bozgorailuen bidez hitz egiteko gai den birus berri bat zabaldu da sare elektronikoaren bitartez. Berria - Gaiak

Sarearen **erabiltzaileen** artean, % 16k bakarrik erabiltzen zuen euskara. Pello Salaburu

Ondokoak garela-eta jabe bihurtzeak ez du eskainitako ezer jaso dugunik esan nahi: ondasun baten legezko jabe bihurtzen gara, ondasun haren **erabiltzaile** bilakatzen. Joxan Elosegi

Ausbanc finantza sektoreko **erabiltzaileen** elkarteak lehen aldiz Euskal Herriko aurrezki kutxa baten aurka bi helegite aurkeztuko ditu, Vital Kutxaren aurka, hain zuzen. Berria - Ekonomia

Sorgintxulo gaztetxeko **erabiltzaile** zirenek Bilboko udaletxeko atarian elkarretaratzea egin zuten atzo, *Okupazioa bai, baina ez poliziala* zioen pankartaren atzean. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Mundu honetan, mendea amaitzen ari zela, 18 milioi **erabiltzaile** berri sartzen zen Interneten hilero eta urte erdiaz behin trafikoa biderkatu egiten da. Pello Salaburu

SUKIL' HAND kanboko eskubaloi elkartea izanen da aterbe honen **erabiltzaile** nagusia. Herria

Kaleko irakurle arruntak behar ditugu, hizkuntzaren **erabiltzaile** arruntak. Ana Urkiza

Eskerrak gu **erabiltzaile** arruntak ditugula bezero. Berria - Ekonomia

Estatuak bakarrik du zilegi biolentzia erabiltzea, baina erabilera horrek arau argi eta garbiak ditu, eta arauok hautsi eta zilegi ez diren bideak erabiltzen baditu, biolentziaren **erabiltzaile** bakarra izateko eskubidea bera ere galtzen du estatuak. Joxerra Garzia

Jakin ezazu **erabiltzaile** anonimo guzti horiek nahigabean beraien izenpedura biologikoa uzten dutela! Ramuntxo Etxeberri

Horrenbeste kezkatzen zuen, ezen, azalpen sakonagoen bila, amarauna arakatu baitzuen bere trebezia guztiaz: ezin zuen sinetsi milaka **erabiltzaile** deskoordinaturen emaitza izan zitekeenik hura guztia. Iban Zaldua

Sustatzaileek azaltzen dietenez, kanpoko **erabiltzaileek** ezin dituzte euren ezkutuko datuak ikusi. Berria - Euskal Herria

Zerbitzu horien balizko **erabiltzaileei** aukera bortxaren bitartez mugatzen zaio. Berria - Ekonomia

Banatzailea da Moreno, eta A-8 autobidearen ohiko **erabiltzailea** da. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Informatikan, **erabiltzaile** mailako trebetasuna. Herria

Tira, **erabiltzaile**-kodea eta giltza pertsonala lortzea ez da oso gauza zaila. Antton Olano

Denborarekin **erabiltzaile** kopurua masiboa izatea espero dute. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iaz, telefono **erabiltzaile** bakoitzari hitz egin gabeko ia hiru ordu kobratu zizkioten batez beste: behar baino 32 euro gehiago. Berria - Harian

Aitzinetik, «barkamena» eskatu zien tren **erabiltzaileei**, «sortuko diren eragozpenengatik». Berria - Euskal Herria

Iraniarren eta nigeriarren etorkizuna ikusteko dagoela, auto **erabiltzaileen** poltsikoa ia ziur zigortuta geldituko dela, ez baitirudi petrolio upelaren salneurria berehalakoan apalduko denik, ez behintzat behinola ezagututako 50 dolarren azpiko mailetara. Berria - Harian

Garai hartan, Institutuko animalia-**erabiltzaile** nagusiak immunologoak ziren, untxia zutela animalia kuttun. Juan Garzia

Sar ezazue A sailean, 853 ziegan, droga trafikatzaile labana **erabiltzaile** trebe haiekin. Itxaro Borda

Funtsean, ortografia hitzak grafikoki adierazi ahal izateko hizkuntz **erabiltzaileek** onartzen duten kodea da. Lourdes Oñederra

Txinak aurten atxilotutako 54 Internet **erabiltzaileak** aske uzteko eskatu du Alk. Berria - Gaiak

5 (izenondo gisa)

Behin-behineko langileen muga %10ean ezarri nahi dute eta urteko lanaldia 24 ordutan murriztea eta azpikontratatutako enpresa **erabiltzaileetako** langileen baldintzetan lan egitea eskatu dute. Berria - Ekonomia

Azpikontratatutako langileek enpresa **erabiltzaileko** gainerako langileen baldintzetan lan egitea eskatuko dute. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da erabiltzaile (4); **da erabiltzaile kopurua** (3); **diete erabiltzaileei** (7); **du erabiltzaileak** (4); **erabiltzaile askok** (3); **erabiltzaile batek** (5); **erabiltzaile gehiago** (4); **erabiltzaile izan** (4); **erabiltzaile kopurua** (7); **erabiltzaileak bere** (3); **erabiltzaileak ez** (4); **erabiltzaileak ez du** (3); **erabiltzaileen artean** (6); **erabiltzaileen datu** (3); **erabiltzaileen datu pertsonalak** (3); **erabiltzaileen elkarteak** (6); **erabiltzaileen elkarteko** (4); **erabiltzaileen eta** (3); **erabiltzaileen kopurua** (3); **eskatzen diete erabiltzaileei** (4); **eta erabiltzaile** (5); **eta erabiltzaile gehiago** (3); **eta erabiltzaileak** (8); **eta erabiltzaileei** (3); **eta erabiltzaileek** (3); **eta erabiltzaileen** (7); **hizkuntzaren erabiltzaile** (3); **kontsumitzaileen eta erabiltzaileen** (3); **miloi erabiltzaile** (3); **zerbitzuaren erabiltzaileak** (4)

---

erabiltzale ik **erabiltzaile**.

---

erabiltze 1 *iz* helburu edo egitekoren baterako baliaraztea.

Hortik ageri da, Afektuen izenak, haien **erabiltze** arruntetik asmatu direla, haien beren ezagutze zorrotzetik baino areago. Piarres Xarriton

Seguru hitz potolo asperrok bizkarrean **erabiltze** hutsagatik poliki kobratzen duela. Patziku Perurena

Halakoetan legegileak dihardu aginpide hertsitzailearen **erabiltze** hutsean, gizartearen desordenarik okerrenak aurreikusteko eta grina eta abusuei mugak jartzeko. Andres Urrutia

Frantziskoren oroitzapenak, egokitzapen eta **erabiltze** guztiak gorabehera, bizirik iraun du etengabe. Askoren artean

Erantzun horrekin gizakiaren izaera eta gizakiaren jardun oro azalarazten dugu funtsean, ez bakarrik ona egitearena, baita ere egiaren eta ederraren bilatze, **erabiltze** eta sortzearena, beti ere maitatuz. Jenaro Garate

Jaungoikoaren ontasunaz gozatzearekin lotzen dugu guk **erabiltze** hori; Jaungoikoak, ordea, gu erabiltzean Jaungoiko beraren ontasunaren eraginez erabiltzen gaitu. Imanol Unzurrunzaga

Hizkuntza klasiko berpiztuak literatur helburu serioetarako **erabiltze** horretan, ez Mendebaldea eta ez Ekialde Urruna ezin dira konparatu bizantziar historialariekin. Iñaki Mendiguren

Gaizki **erabiltze**, tortura, arrobatze, iziarazte, buluzte, bortxatze zernahi pairatzen dute poliza-gizonen ganik, eta etorkinetaz arduratzen diren manatarien ganik. Herria

Etxeetan indarrez sartze, ebaste, su emate, ukaldika **erabiltze**, emakume bortxatze, aihotzez kolpatze... nork bere istorio ikaragarria zekarren, nork bere izua, nork bere mina, baita nork bere gaitzespena ere, gure aldera. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan)

Ukatze eskubide hori beharrezko ikusten dute autore askok, norberaren **erabiltze** eskubidea bermatuko bada. Berria - Gaiak

Ez-**erabiltze** urteok ez dizkizute ahantzarazten zenbait tik profesional, edozein zirkunstantziatan kimikaritzat ezagutarazten zaituzten zenbait jokabide estereotipatu. Juan Garzia

· Indarkeria **erabiltze** arinek, 6 eta 18 hilabete arteko zigorra izango dute. Berria - Euskal Herria

---

erabiltzearren *adlag* erabiltzeko.

Autokritika egin, euren berbaera marxista zaharkitua **erabiltzearren**. Xabier Montoia

Jendeak masiboki PSri bozkatu bazion, ez da PSren jarraitzaileak direlako; boto baliosa **erabiltzearren** baizik. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta xehetasun horiek, Antoniok berak ahoan maiz izaten zuen esapide paradoxikoa **erabiltzearren**, xehetasun lausoak izan, nolabait. Iban Zaldua

Eta, "hain ohiz kanpokoa ez dena" esan dut, halakoen antz-irudiari samurren datorkion hitz ahalik eta epelena **erabiltzearren**. Mirentxu Larrañaga

Modan zegoen hitza **erabiltzearren**: ekidinezin. Itxaro Borda

---

erabiltzeke *adlag* erabili gabe.

Txabola hau eta beste batzuk konpontzeko igo zuten materiala **erabiltzeke** dago gaur egun. Berria - Kirola

Sarritan adierazi da alde batera utzi behar zirela, **erabiltzeke** , zientziaren aplikazio batzuk, baina ez zaio oraingoz inori otu ezaguera bera debekatzeko eskatzea. Juan Garzia

Bere-berea baitzuen, noski, bere historia hori, zeren, jarraian jakin nuenez, sarritan eta edozeinen aurrean kontatzen baitzuen, materiaren beraren puskarik sustantziagarri **erabiltzeke** noski, eta urteak joan ahala gero eta xehetasun kolorebiziago eta sinesgaitzagoz. Juan Garzia

Noski halako gogo-zabal egin gintuenak, atze-aurreen so egile, ez zigun eman gaitasun eta jainkozko arrazoimen hori **erabiltzeke** lizun zedin gugan. Juan Garzia

---

eradan, eradaten du *ad* edanarazi.

Baina lehen, plazer ote duzu **eradatera** eraman dezadan eta garbitzera? Aurelia Arkotxa

---

eradoski, eradozkitzen **1** du *ad* edoskiarazi.

Argi zegoen bular haiek ez zutela haurrik **eradoski** . Ibon Uribarri

2 irud/hed

Eta hori dena bere semearen bitartez, bere sabel santuan eraman, bere altzoan babestu, bere hitzez **eradoski** eta bere janari salbagarriz hazi zuen semearen bitartez. Askoren artean

---

eradoskitze *iz* edoskiaraztea.

Normalean, ez dute jarduera sexualik ez aralditik kanpo, ez ernaldian ezta **eradoskitze** aldi luzean ere. Luis Elberdin

Jarduera sexuala ez dago ugalketara bakarrik bideratua, eta emea ernaldu ezin daitekeen garaietan, ernaldian eta baita **eradoskitze** aldian ere izaten da. Luis Elberdin

---

eraendu, eraen, eraentzen du *ad* gobernatu, administratu.

Orotan beti asmatzeko etsita egon behar dugu nik zuria ikusten dudana beltza dela, Eliza hierarkikoak hala irakasten badu, pentsatuz Kristo gure Jaunaren, senarraren, eta bere emazte Elizaren artean espiritu berak gobernatzen eta **eraentzen** gaituela gure arimen osasunerako, bada hamar aginduak eman zituen Espiritu eta jaun berak agintzen eta **eraentzen** du Eliza ama santa. Patxi Altuna

Laster ikusi zen modu errazean mundua **eraentzen** duen botere ikustezinari atsegina emateko modu sakon eta seguruena jokabide zuzena dela, horrela beste munduan bederen zoriontsu izateko. Ibon Uribarri

Honek guztiak pentsarazten digu badagoela, organo desberdinen funtzionamenduaren azpian, ahalmen orokorrago bat, ikurrak **eraentzen** dituena. Isabel Arrigain

Ia ezinezkoa da sonanteen kontua eztabaidatzea, fonemen konbinaketak **eraentzen** dituen legeak modu zehatzean atzematen ez badira. Isabel Arrigain

Dena topaketa-estrategia bat antolatzean datza, zeinaren bidez orientaturik gelditukо den (horretan datza filosofia) gizakiaren jardutea eta, zeinaren bitartez errazago esplizitu eta eraginkorrago bihur daitekeen giza jardutea **eraentzen** duen printzipioa. Piarres Xarriton

Bi forma elkartzea, zerbait komun badutela sumatzea ez ezik, elkarketa hori **eraentzen** duten erlazioen izaera atzematea eta bereiztea ere bada. Isabel Arrigain

---

eraentza *iz* gobernatzea, administratzea.

adimenaren eta sentsuen gaineko **eraentza** lasai eta iraunkor bat Hirugarren dinastian zehar ezarri zen gobernu-**eraentza** hobeari esker, elizgizonek beren ondasunak ugaldu ahal izan zituzten. Ibon Uribarri

---

eragabe **1** *izond* era edo neurririk ez duena, gisagabea. ik **itxuragabe**.

Orduan hasi nintzen ni Unibertsoko Nagusiari otoitz egiten, otoitz zentzugabeak, **eragabeak** , baina daitezkeen beroenak, zinezkoenak egiten. Matías Múgica

Nahiago zuen etxeko andreak hainbeste estutu ez balu, etengabe ematen baitzizkion agindu **eragabeak** eta arnasa hartzeko betarik utzi gabe hona eta hara bidaltzen, senetik ateratzeraino. Matías Mujika

Tourettedun askok atletismorako joera izaten dute, hein batez (susmatzekoa da) beren abaila eta zehaztasuna dela medio, eta beste hein batez beren mugimendurako bulkada eztandatsu eta **eragabea** dela medio. Xabier Olarra

Bezperan, argi-unetxo bat izan zuen gaixoak eta, ahal zuen moduan, hitz **eragabez** baina bihotz zintzoz, Aita errukiorrari deika hasi zen. Askoren artean

-Barkatu, zuetako nor da Nozdriov jauna? -esan zuen ezezagunak, harrituxe Nozdriov eta Txitxikov hala ikusirik, pipa eskuan bata eta bere jarrera **eragabea** zuzentzen hasia bestea. Jose Morales

Hogeita bi urte zeramatzatela ezkondurik eta zoriontsu bizi izan zirela, harik eta, zuela bi urte, emazteak ohitura aski **eragabeak** hartu zituen arte. Irene Aldasoro

Ez nuen erlojurik aldean eta bezero haietako bati ordua galdetzea gauza **eragabea** iruditzen zitzaidan. Matías Múgica

Zure esku ahalguztidunak, ekai **eragabetik** mundua sortu zuenak. Elizen arteko biblia

Buruan kapela **eragabe** bat zeraman, eta beroki marroi handi bat, soinean. Karlos Zabala

Lucyk atea irekitzen du, ohe-atorra ere izan daitekeen bata **eragabe** bat jantzita duela. Oskar Arana

Direnak eta ez direnak ezereztatzen dituen joritasun **eragabeari** zorroztasun neurritsuaz egin nioan buru. Jon Muñoz

Orduantxe ohartu nintzen haurtxo haiek **eragabeak** , konkordunak, bihurrituak, guztiz itsusiak zirela hirurak. Josu Zabaleta

Aspaldi ahaztu zuen esaten zituen hitzetan non zegoen egia eta non gezurra, eta nahasmendu horrek tabakoaren keak bezala inguratzen zuen beraren bizitza **eragabe** , lizun eta mozkorra. Sentipen hori desatsegina zen, bere izaeratik eta kideengandik urrundu eta prostituzio-etxera eta hango bizitza **eragabe** eta gaitzesgarrira hurbiltzen zuelako. Jose Morales

Goizeko seiak aldera, etxetik irteten ari garela, nahaspila **eragabe** batekin topo egiten dugu Dutertrek eta biok. Josu Zabaleta

Halaxe irudikatzen zuen prostitutarekin, maitasuna lanbide zuen emakumearekin igaroko zuen gaua ere, eta zentzugabea iruditzen zitzaion, guztiz nahasia, kaos txiki, **eragabe** eta lohi samar baten antzekoa. Jose Morales

2 (adizlagun gisa)

Hortxe ikusten zaitut nire urruntasun liluragarri, eder honetatik: behartsu, **eragabe** , zakar. Jose Morales

Anaiek, Jainkoaren maitasunagatik eta karitatez, eskatu zioten zentzaraz zezala komentu hartan bizi zen anaia gazte bat: umeen modura, eta hain **eragabe** eta lasai portatzen zen, non familia hartako zahar eta gazteak asaldatzen baitzituen. Askoren artean

3 ***eragabeko*** eragabea.

Bat-batean bere baitan sendi zuen lasterka egiteko behar **eragabekoa** . Ramuntxo Etxeberri

· Horrela, gaur egun, Adanetik honanzko belaunaldi guztiak onartzen dituenez, jarraitzaile prestuak bereganatu ditu Kaoseko eta Huts **Eragabeko** biztanle kreazio-aurrekoen artean. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eragabekeria *iz* gauza eragabea.

Beraz neure barrenean, neure buruaren kaltean, gero eta **eragabekeria** gehiago sortuz joan nintzen. Matías Múgica

eragabeki *adlag* modu eragabean.

Gogora etorri zitzaion bere ingeles nortasun-agiria, azken aldian **eragabeki** lardaskatzen zuen hizkuntza hori hain zuzen ere. Jose Morales

eragabetu da/du *ad* eragabea bilakatu.

Zenbat heriotza diren beharrezko! Janariak erabat birrindu egin behar du, xehetatu, urdailera baino lehenago eta han berriro **eragabetu**. Joan Mari Lekuona

Lagunok, ikusten duzue, ordea, jaten dugun gorputzeko janariak, ogiak, ardoak, eta hartzen dugun guztiak, hil egin behar duela bere buruarekiko, eta **eragabetu** ere bai gure naturak bereganatu baino lehenago, eta naturarekin bat egin aurretik. Joan Mari Lekuona

Horrela, ezagutzen dugun materia txikiena bera ere **eragabetuko** genuke. Fernando Morillo

eragaitz *izond* eragabea.

Eragaitz diren gauzak urduri daude; era onez dute atseden. Imanol Unzurrunzaga

eragiketa *(**260** agerraldi, **40** liburu eta **38** artikulutan; ETCn **10.210** agerraldi)* **1** *iz* helburu jakin bat lortzeko egituratzen den ekintza saila.

Deskribatzen da formulak berak, bere azaleratzean, burutu duen **eragiketa**: agintzaria, agindua, dekretua, hitzarmena, egiaztapena. Xabier Arregi

Guggenheim museoak ere egin ditu makina bat **eragiketa**, eta ondorengoa ondorioztatu: 874.807 bisitari izan ditu urte bukatu berrian. Berria - Kultura

Arriskutsua da **eragiketa** hori poliki egitea; arriskutsua da bizkor egitea ere. Iñaki Iñurrieta

Eragiketa haren xedea errepublikak hiritarrei zor ziena kitatzea zen, ez hiritarrek elkarri zor ziotena kitatzea. Iñaki Iñurrieta

Bankuaren iritziz, «momentu egokia da **eragiketa** hori egiteko [...]». Berria - Ekonomia

Merkatu irekiko **eragiketak** eginez (open-market **eragiketak**, alegia, zor publikoa erosiz edo salduz). Iñaki Heras

Finantzabideak xekatzen zituen kooperatiba horrekin, HERRIKOA kapital arrisku sozietatea partaide bezala engaiatu da **eragiketa** hortan. Herria

1987 ondorengo nazioarteko zuzeneko inbertsioen parte handi bat, nolanahi ere, zor-bihurtzeen eta pribatizazio-programen **eragiketen** ondorio dira. Koro Navarro

Enuntziatua, bere materialtasunean sortzen den aldi berean, estatus batekin agertzen da, sareetan sartzen da, erabilera-arloetan kokatzen da [...], txertatzen da bere identitatea gordetzen edo ezabatzen den **eragiketetan** eta estrategietan. Xabier Arregi

Perpaus berriak sortzeko **eragiketarik** emankorrenetako bat, juntaduraren **eragiketa** dugu. Itziar Laka

Kontuan hartu, Tw1 **eragiketak**, oraingoan, Tgald formaldatzearen eragina desegiten duela. Itziar Laka

Abstrakzioen genesi bat, ahalegintzen dena hauek osatzea baimendu duten **eragiketen** saila berraurkitzen. Xabier Arregi

Finantza ingeniaritza konplexuko **eragiketak**, beti ere epe motzerako irabazien bila. Iñaki Heras

Makina adimendunek hainbat eta hainbat **eragiketetan** ordezkatzen dute gizakia, eta milioika langile lepo-zuri eta lepo-urdin bidaltzen dute langabezia ilaretara, edo are okerrago, benefizentziako jangeletara. Iñaki Heras

Kontzeptuak eratzeko arauak, edozein dela euren orokortasuna, ez dira gizabanakoek burututako **eragiketen** emaitza, historian ipinitakoa eta ohikuntza kolektiboen sakontasunean jalkitakoa. Xabier Arregi

Lehen hurbilpen gisa, esan liteke elkarren ondoz ondo burutzen diren hiru **eragiketaren** emaitza dela ikusmena. Josu Zabaleta

Hipermerkatuan inorekin hitz egin gabe egin ahal izango ditugu **eragiketa** guztiak: denetik erosi, automobileko depositua bete, zinera joan, ilea moztu eta makillatu... Edorta Agirre

Makina honek aldi berean jartzen ditu lanean 512 ordenagailu eta segundo bakoitzean gai da 12,3 milioi **eragiketa** egiteko. Pello Salaburu

Banku batzuek, bezeroak **eragiketa** bat egiten duen bakoitzean, **eragiketa** hori Interneten bidez eginez gero, bezeroari ordaintzen diote, ez alderantziz. Pello Salaburu

2 (matematikan)

Aritmetikako lau **eragiketak** eta erroak ateratzea: ez zuen munduak, hainbat mendez, beste **eragiketarik** izan. Jon Muñoz

Matematikaren arlotik datozkigun kontzeptuak hizkuntzara bihurtuta, honako **eragiketa** hauek bereizten ditu bere sailkapenean: gehitzea, kentzea, bidertzea, konbinatzea eta ordezkatzea. Iñaki Arranz

Egoera bat aztertzeak ekarriko du, ezinbestez, garrantzi gutxiko aldaketak alde batera uztea, matematikagileek ere, hainbat **eragiketatan** -logaritmoen kalkuluan, esaterako- kopuru infinitesimalak baztertzen dituzten bezala. Isabel Arrigain

Ekuazioak erradikalen bidez ebaztea (ekuazioen ebazpenak kalkulatzea, lau **eragiketak** eta erro karratuak, kubikoak, etab. soilik erabilita; beste inolako **eragiketarik** erabili gabe, alegia). Jon Muñoz

Erromatar zenbakera idatziak ez zuen batere balio kalkulurako, **eragiketarik** soilena abakoaren laguntzaz egin behar baitzen. Jon Muñoz

Aljebra aritmetizatzea: ezezagunari aplikatzea aritmetikak zenbakientzat bakar-bakarrik erabiltzen zituen **eragiketak** (--, -, x,:, erro karratuak aurkitzea). Jon Muñoz

Eragiketa bihurtu zen deribazioa, mota berri bateko **eragiketa**, zenbakiekin ez, baizik kurbei lotutatuko kantitate aldakorrekin aritzen zena. Jon Muñoz

Badira [...] **eragiketazko** azterbide nahiko zuzenak bereizkuntza fonemikoa erabakitzeko. Itziar Laka

Eragiketazko formulak ziren, ebazpenen benetako zenbakizko kalkulua egiteko bidea ematen dutenak. Jon Muñoz

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Liga bukatzeko lau egun falta direla talde guztiak **eragiketa** matematikoak egiten ari dira. Berria - Kirola

Ildo beretik, bi gehi mila berdin mila eta bi **eragiketa** matematikoaren aldean, bi gehi mila berdin bi mila **eragiketa** linguistikoa genuke. Iñaki Arranz

Aritmetika bitarra erabiltzen du konputagailuak, hau da, biko eskala bat; eskala horretan, bat eta zero dira digitu bakarrak, eta, beraz, bai edo ez erabaki besterik ez dute egiten **eragiketa** aritmetiko guztiek. Irene Aldasoro

Eragiketa morfologikoa da fonologikoa baino areago. Lourdes Oñederra

Hizkuntza erkaketa, beraz, ez da **eragiketa** mekaniko bat; erkaketak, argibide emateko egokiak diren datu guztiak alderatzea ekarri ohi du ezinbestean. Isabel Arrigain

Beren agindupeko dituzte enbrioiaren garapenerako **eragiketa** espezifiko batzuk. Juan Garzia

Teorian negozio errealak finantzatzea helburu dute **eragiketa** finantzario horiek. Iñaki Heras

Eragiketa optikoak, **eragiketa** kimikoak eta nerbioen **eragiketak** dira horiek.Bistan da **eragiketa** bortxatu horiek ezin gerta daitezkeela gure garaian; printze batek bere burua engainatuko luke, ez beste inor. Aldez aurretiko **eragiketa** eraginkor batzuen existentziak mugatzen ditu. Josu Zabaleta

Gure ikasketak euskaraz egiteko aukera izan ez dugunok erdaraz ikasi dugu kontatzen edo oinarrizko **eragiketak** egiten. Pello Salaburu

Hala, zelularen oinarriko **eragiketa** jakin batzuetarako, erreakzio eta eragin-trukeak tartean direla, zenbait multzo espezifiko jartzen da lanean. Juan Garzia

Gero alderantzizko **eragiketa** egiten nuen, eta arropa zuritu ahala ura findu egiten zen berriro ere, ibaietako ur mehea izan arte. Lander Garro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Konbinatoria zabal baten emaitza da, non elementu ia finkoak -**eragiketa**-modulu konplexuak determinatzen dituzten gene segmentuak edo gene-blokeak- askotariko antolamenduetarako baliatzen baitira. Juan Garzia

Muga horiek ezarriko lizkiokete, bera konturatu gabe, postulatuak, **eragiketa**-eskemak, hizkuntza-arauak, baieztapenen eta oinarrizko sinesmenen multzo bat, irudi-motak, edo fantasmaren logika oso bat. Xabier Arregi

Ez da **eragiketa** sail baten foku konstantea, mugiezina, bere buruaren berbera, enuntziatuek, txandaka, diskurtsoaren azalean aditzera emango luketena. Xabier Arregi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gramatikako lekualdatze-**eragiketek** egitura hartzen dute kontuan. Itziar Laka

Hizkuntza batean eskuragarri dauden sintaxi **eragiketak** nola erabiltzen dira hizkuntza horren benetako erabileran? Itziar Laka

Estatu Batuetako 500 korporazioren irabazien kopurua Estatu Batuetako BPGren % 60 baino handiagoa da; munduko nazioarteko ekonomia **eragiketen** % 70ean nazioarteko korporazioak aurkituko ditugu. Pello Salaburu

EBko nazioarteko banku **eragiketa** nagusia da. Berria - Ekonomia

SEC Burtsa **Eragiketen** Batzordearentzat presidente ohia erruduna da. Berria - Ekonomia

Azkenean, kontu ilunen batean nahasturik gertatu zen: diru-**eragiketaren** bat edo. Irene Aldasoro

Inbertsio errealak eta diru laguntzak, eta kapital **eragiketarako** transferentziak %12,4 dira. Berria - Mundua

Dibisa **eragiketak** ere egiten ditu (euroaren eta munduko gainerako dibisen arteko truke-tasa politika), herrialde kideen dibisa erreserba ofizialak bere esku baititu. Iñaki Heras

Tobin tax esaten zaiona, James Tobinek proposatu zuen jadanik 1978an; truke-**eragiketa** guztiei zerga apal bat ezartzean datza, %0,5 adibidez. Koro Navarro

Tobin-zergak, dibisen truke **eragiketen** gainean ehuneko 0,1 edo 0,2ko tasa aplikatzea du helburu. Iñaki Heras

SCHren aurka egin zuen, «Santanderrek antolatutako espekulazio **eragiketa**» izan zitekeela salatuta. Berria - Ekonomia

Ikusten denez, kanbio-**eragiketek** beti berdindu behar diren sarrera eta irteeren kontua osatzen dute. Iñaki Iñurrieta

Nazioarteko merkataritza eta finantza **eragiketetan**. Iñaki Heras

Errenta maila garaia dutenek zerga aholkularitza askoz hobea izateaz gain, zerga arautegi konplexuan jasotzen diren hainbat eta hainbat aldrebeskeria dela medio, finantza-ingeniaritza **eragiketei** onura handiagoa ateratzeko aukera hobea baitute. Iñaki Heras

Gutxi batzuk aberastuko ziren, aberastu dira, eraikuntza **eragiketa** batzuk direla medio. Karlos Linazasoro

Ezaren eta baiaren arteko bereizketa bizirik irautea beste helbururik ez duen buru-**eragiketa** baten emaitza. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da eragiketa (8); **den eragiketa** (4); **egindako eragiketa** (3); **eragiketa bat** (12); **eragiketa bat egin** (3); **eragiketa baten** (7); **eragiketa baten emaitza** (3); **eragiketa batzuk** (3); **eragiketa egin** (5); **eragiketa guztiak** (3); **eragiketa hori** (9); **eragiketak eta** (5); **eragiketak ez** (3); **eta eragiketa** (9); **ez da eragiketa** (3); **lau eragiketak eta** (3); **zuen eragiketa** (4)

---

eragile *(3.680 agerraldi, 127 liburu eta 1.617 artikulutan; ETCn 47.721 agerraldi) izond* **1** eragiten duena; nahi edo espero den ondorioa lortzen duena. ik **eragingarri**.

ELAren Kongresura aurkeztuko duten Batzorde **Eragilea** osatzeko proposamenak hiru aldaketa izango ditu. Deus ez dela gertatzen, deus ez sortzen, kausa sortzaile eta **eragile** batek sortaraziz eta eraginda ez bada. Berria - Ekonomia

Kontuan izan behar duzu, halaber, hegalak hegaldiaren kausa **eragileak** direla. Xabier Kintana

Azken adiera honekin bat etorriz, Jainkoari "Harkaitza" esan zaio, Beragandik kanpoan den guztiaren hasiera eta kausa **eragilea** den aldetik. Xabier Kintana

Txerto berria lortzeko prozedura honakoa da: gai **eragilea** lehortu eta azukrezko bolatxo batean biltzen da. Berria - Gaiak

Metafora gure gogoan atxikirik geratzen da, indar **eragile** handia baitu. Iñaki Heras

Gizonen lege aldakorrek eta sexu bat bestearengana bultzatzen duen erakarmen indar ikaragarriak; hau, askotan, unibertsoaren indar **eragilearen** antzekoa da. Juan Martin Elexpuru

Zizeronek ildo berria eta oldar **eragilea** eskaini zion Agustinen bizitzari. Imanol Unzurrunzaga

Birusa Symbian OS sistema **eragilea** erabiltzen duten telefonoen bidez zabaltzen dela zehaztu dute. Berria - Gaiak

Muskulu-zuntz horiek guztiak batera uzkurtzen dira, unitate **eragile** bakar baten gisa. Irene Aldasoro

Kalkulu hauek betetzen badira, eta orain aurrez ikusi ezin ditugun beste faktore **eragile** batzuk agertzen ez badira (etorkinen eragina, esaterako), Hego Euskal Herriko unibertsitateek [...] ikasleen heren bat inguru gal dezakete 2000 eta 2010. urteen artean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

BAM-en 10.000 elebidun **eragile** kondatuak izan dira eta beste 10.000 elebidun hartzaile, hots erdi euskaldunak. Herria

• **2** *iz* eragiten duen pertsona edo gauza.

HERRIAko bi idazle eta **eragile** ohoretan eman ditu Euskaltzaindiak joan den ostiralean. Herria

Eragileek manifestazioa eginen dute larunbatean, Herriko Etxearen «axolagabekeria» salatzeko. Berria - Kultura

Pozik agertu zen «lan erreforma hau **eragile** guztien adostasunaren isla» izango delako. Berria - Ekonomia

Hezkuntza Sailak **eragile** gehienen kritikak entzun ditu Hezkuntza Foroa hasi aurretik. Berria - Euskal Herria

Askotan **eragileak** hil egin zituzten (Ariztimuño eta Lauaxeta fusilatu egin zituzten) eta beste batzuetan kartzelan sartu edo erbestera iraitzi (Orixe). Askoren artean

Hau, ordea, ez da zuzenean soinuak lantzeko **eragile** bat, soinuak espazioan zabaltzeko diseinatutako tresna baizik. Berria - Kultura

Agustin deunaren lan filosofikoa eta teologikoa ulertzeko, ezinbestean ezagutu beharko dugu beraren bizitza, jasan behar izan zituen gorabeherak eta bere izaera eta pentsaera taxutu zuten hainbat eta hainbat **eragile**. Imanol Unzurrunzaga

Alavesen boladaren oinarrian hainbat **eragile** egon daitezke: Palermoren fitxaketa, Chiclanan egindako egonaldia, Espainiako Kopatik kanpo gelditzea... Berria - Kirola

Fisikak azaldu digunez, kausa bat daukan ororentzat badira kausa batzuk, eta hauek lau dira: materia, forma, **eragilea** eta xedea, eta horietan badirela hurbilak eta urrunak. Xabier Kintana

Hona, beraz, zer nolako errakuntza handira leramakeen esaera honek: Jainkoa **"eragile"** (edo "eraginkor") hutsa dela, eta ez dela "xede", ez "forma". Xabier Kintana

Ez baitu ardura zerorrek horri erabakitzaile, **eragile**, sortzaile, ekoizle, berritzaile edo xedez jardule esatea, horrek guztiak esangura bera besterik ez daukalako. Xabier Kintana

Heriotzaren **eragilea** bihotzaren kolapsoa izan zen. Edorta Jimenez

Hutsalkerietan bere garaikide guztiei aurrea hartuz, denen gainetik nabarmentzen zen gaiztakerien **eragile** eta ergelkeriaren txapeldun gisa. Askoren artean

Bidegabekeriak egiten ditugu urrats bakoitzean eta besteren zoritxarraren **eragile** izaten gara une oro. Jose Morales

Autoan izandako istripuak apoplexia eragin ziola uste zuen (edo alderantziz, istripuaren **eragilea** apoplexia izan zela), eta beldur zen ez ote zuen halako batean berriro ere apoplexiak joko. Xabier Olarra

Zein pozik nagoen horren **eragilea** izateagatik! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hemengo helburu bakarra Jainkoa (gorets bedi!) munduan gertatzen diren egitate berezien **eragilea** dela baiestea da, mundu osoaren **eragilea** den bezala. Xabier Kintana

Europan bazterreko estatusa zuten nazioetako erregeak izan ziren merkataritzako abentura horien **eragileak**. Koro Navarro

Gatazkan inplikaturik dauden **eragileak** zein konpromiso hartzeko prest dauden begiratzea. Berria - Harian

Hau izango da beste **eragile** bat gaur dugun unibertsitatearen iritzia alda dezakeena hurrengo urteetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gizarte-aldaketaren **eragile** izan behar zutenak -klase herritarrak, alegia- dira, paradoxikoki, hedabide narkotizatzaile horien kontsumitzailerik handienak. Txema Ramirez de la Piscina

Hiru izan dira beraz finantza-globalizazioaren **eragileak** 1980ko hamarraldian: merkatuen bitartekaritza, arautzea eta zatiketa ezabatzea. Koro Navarro

Ogia okinaren bezeroei eramatera nindoan egun batean nire ezbehar guztien **eragilearekin** egin nuen topo: Velenorekin. Pello Lizarralde

Sistema ekonomikoa, ekoizpenari eta produktuaren banaketari zegokienez [...] ekonomikoak ez ziren **eragileen** arabera antolatzen zen; **eragile** horien artean, ahaidetasunezko harremanak eta erlijioa ziren nagusiak. Koro Navarro

Inflazio-diferentzialak eta gerraren ondoren finkatutako parekotasun sarritan artifizialak, truke-tasa errealen aldaketa garrantzitsuen **eragileak** izan ziren. Koro Navarro

Demagun arrazoimenaren ideian osorik zuzenak baina geuri aplikatzeko errealitaterik gabeak, h[au] d[a], **eragilerik** gabeak liratekeen beharrak daudela. Ibon Uribarri

Eragilea **eragiletzat** hartzen baduzu, hortik nahitaez segitzen da badela horren egintzaren objektua, arkitektoa, etxea eraiki baino lehenago, ez baita egintzazko arkitektoa, ahalezko arkitektoa baizik. Xabier Kintana

Bukatu dira subiranotasun eta ospeari buruzko eztabaida haiek, iraganeko gerra guztien **eragile** izan zirenak. Iñaki Mendiguren

Nork ez daki neurria eta dimentsioa direla harmonia osoaren **eragile**? Imanol Unzurrunzaga

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaur gaurko mundua ulertu eta argitu nahiko luketen **eragile** kulturalak dira: giza izaera gaurko talaiatik begiratzen dutenak. Anjel Lertxundi

Euskal Herriko ahalik eta **eragile** sozial, politiko eta sindikal gehienek ekimenari babesa eman diezaioten. Berria - Euskal Herria

Eragile sentigarri hauek lege hausleentzat pentsatuak dauden zigorrak dira. Seinale elektrikoa sinapsia gainditzeko gai ez bada ere, **eragile** kimikoak nahikoa erraz gainditzen du, eta hala transmititzen da mezua. Juan Martin Elexpuru

Suposatzen da armiarma ikustean aulkira salto egitea eragiten duen **eragile** fisikoa badagoela kasu guztietan. Askoren artean

Eragile biologikoek, kulturalek eta psikologikoek eragiten dute horretan. Luis Elberdin

Itzulpen lana izan delako tradizioaren eta hizkuntza-ren arteko osmosiaren **eragile** nagusi. Bernardo Atxaga

XVII. mendean, gerra izan zen, berriz ere, zentralizazio politikoaren **eragile** nagusia. Koro Navarro

Egindako ahalegin ekonomikoaren araberakoak dira unibertsitate eta ikerketa zentro publikoetan egiten den ikerkuntzaren emaitzak, nahiz horrekin ez dugun esan nahi gastatzen den dirua dela **eragile** bakarra. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez al da beren buruen maitasuna jende honen **eragile** bakarra? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eragile jarraitu eta mailakakoa den seinale akustikoa, gure oharmenak kategoria ezberdin ez-jarraituetan banatzen du. Lourdes Oñederra

Gure plataforma laburra eta estua da zoritxarrez, baina tropikala du flora, eta uraren tenperatura, berriz, hotza; bi **eragile** kontrajarri horiek plankton berezia dute ondoriotzat. Ramon Saizarbitoria

Giza baliabideena da unibertsitateetan gaur egiten den ikerkuntzaren **eragile** mugatzaileenetako bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Globalizazioa, ororen gainetik, pribatutzat jo daitezkeen integrazio-logiken emaitza da; pribatuak direla esan daiteke, hain zuzen, **eragile** pribatuek bideratzen dituztelako, baina horrez gainera, eta ororen gainetik, ez datozelako beti bat eragile horien jaioterri diren estatuen interesekin. Koro Navarro

Merkataritza-burgesiak mendeetan zehar baliaturiko familia-kate horiexek dira kapitalismoaren sorreraren **eragile** nagusietako bat. Koro Navarro

Badirudi bera izan zela taldearen **eragilerik** eraginkorrena. Xabier Montoia

Eragile demografikoez gain badirela beste faktore batzuk kontuan hartu behar direnak, ikasleak hara-hona mugiarazteko gai direnak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrela, gizakia kontziente bihurtzen da eta, era berean, kultura eboluzioaren **eragile** kausal bilakatzen da. Askoren artean

Askotariko **eragileak** daude, noski, eta oso konplexuak. Juan Garzia

Atzerritar teknologiak eta antolaketa-sistemak bereganatzen dituzte tokiko **eragileek**: bazkideek, zuzendaritzako kideek, teknikariek eta langileek. Koro Navarro

Beheraldia mende batez luzatu zen, eta kanpoko **eragileak** izan zituen: izurriteak, gerrak eta eguraldiaren hoztea. Koro Navarro

Politikak prestatzen eta erabakiak hartzen gizarteko **eragile** guztiek parte hartzeak lagundu egingo du anaitasuneko eta ingurumen-errespetuko baloreak geureganatzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Halako gauza halako **eragile** baten ondorioa da, eta berori, bere aldetik, berarena, eta honetara hurrenez hurren, lehen motorreraino heldu arte, hots, bitarteko gauza horien guztien egiazko **eragileraino**. Xabier Kintana

Venezuelak eta Mexikok ere parte hartu zuten, eta bi estatu garrantzitsu horien elkarlana badugu, Mercosur nazioarteko **eragile** garrantzitsua izan daiteke etorkizunean. Berria - Mundua

Espero behar da euskal **eragileak** ez jartzea Madrilera begira. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aise eratzen dira petrolio-kartelak, **eragile** kopuru txiki baten esku egon baita beti petrolioaren ustiakuntza. Koro Navarro

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lukrezioren ahotsa gure bilaketen sehaska-**eragile** da. Xabier Amuriza

Zalantza egiten zuen ez ote ziren haien artean errebelderen batzuk sortuko, zerbait zirelakoan harropuztuko zirenak, liskarrerako prest eta eskandalu-**eragile**. Askoren artean

Zen modukoa zelako, asko, gaizkileak eta gaitz **eragileak**, joaten zitzaizkion atzetik. Askoren artean

Abadia maldatsua, han, jauregi fantastiko bat bezala lurretik urruti baztertua, ametsezko palazio bat bezala harrimen **eragilea**, uste ezin bezalako berezi eta ederra. Josu Zabaleta

Hitzezko jauregi gotorra eraiki zuen izuaren aurka, izua izutien alde erabiliz, izutiak defendi zitezen izu-**eragilearengandik**. Felipe Juaristi

Ezagutzen duzu nire sehia, azpijokoetan maisua, eta irri **eragile** zinezkoa. Jon Muñoz

Klitoria da emakumearen plazer **eragile** handiena. Luis Elberdin

Sastrakaz eta basalandarez estalirik bazegoen ere, bera zen herri handi hartako bizi-**eragile** bakarra, bera zen, bere inorgabetasun xarmagarrian, gauza benetan eder bakarra. Jose Morales

Organo hauek hots-**eragile** gisa duten betekizuna beren mugikortasunaren araberakoa da zuzen-zuzenean. Isabel Arrigain

Hartaz konturatzea hondamena izan daiteke gazte autista dohaintsuentzat adin horretan, eta depresio-sorrarazle eta suizidio-**eragile** izan da noiz edo noiz. Xabier Olarra

Oinaze-**eragileak** ankertzen doazen heinean, gizonen arimak ere gogortu egiten dira. Juan Martin Elexpuru

Xede-geneok determinatzen dute hazkuntza-**eragileen** eta haien hartzaileen ekoizpena, eta, beren adierazpenez, zelulen ugalketa eta eragin-trukea arautzen. Juan Garzia

Hara, han nabari diren dunbuilo beltz haiek mira-**eragile** batzuk dira noski, eta halaxe dira dudarik gabe, karroza hartan printzesaren bat lapurtuta daramatenak. Patxi Ezkiaga

Mira-**eragile** gaiztoengandik gorde dezala berori Jainkoak eta onik eta bakean atera nazala ni gobernu honetatik. Patxi Ezkiaga

Krisiaren sorrera-**eragileetan**, zabalkundearen mekanismoetan, eta konponbidearen baldintzetan, guztietan agertzen da dimentsio hori. Koro Navarro

Analogia da hizkuntza baten arkitektura etengabe aldarazi ohi duten indar guztien laguntza onena, eta alde horretatik, bilakaera-**eragilea** da analogia. Isabel Arrigain

Jarrera hori zabaltzen, gainera, kultur **eragile** ezin nekatuzkoa izan dugu. Askoren artean

Beste batzuek [...] ororen gainetik, Amerikaren kolonizazioak suposatu zuen ahalegin izugarria azpimarratzen dute, Espainia gizarte-**eragilerik** gabe utzi zuena. Koro Navarro

Ez ginateke harritu beharko unibertsitatetik kanpoko gizarte eta politika **eragileen** esku geratuko balitz unibertsitateko zuzendari nagusiaren, errektorearen, aukeratzea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Berriz ere merkatu **eragileek** automatikoki eta eraginkortasunez funtzionatzea da helburua. Iñaki Heras

Lan-indarraren ordainketa da munduko espazio ekonomikoaren beste faktore desberdintasun-**eragile** egiturazko bat. Koro Navarro

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Graemetarren jauregia izan zitzaion babesleku, baina, egoitza dotore hura ere estua eta itolarri- **eragilea** bilakatu zitzaionean, Edinburgo hirira joaten hasi zen barrena pozoitzen zion atsekabetasunetik ihesi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aski izan zitekeen beste antolamendu hori Usher Etxearen ahalmen goibeltasun- **eragilea** aldatzeko, edo ezabatzeko beharbada. Koro Navarro

Soriak atsoa gonbentzitu, lurpeko aparkalekutik atera, etxera ekarri eta han mastodonte bat akatzeko adina pilula lo- **eragile** emanda egin zituen harekikoak. Erasoaldia 250 kiloko bonbez eta bonba su- **eragilez** burutu zela dio. Aingeru Epaltza

Milton Friedmanen arabera, espekulazioaren bertute egonkortasun- **eragileak** bultzatzea da diruen flotazioaren beste abantaila bat. Koro Navarro

Irudi ilusio- **eragilea** eta irudi-antza ere bereizi beharra dago, orobat. Josu Zabaleta

Horrek ez duela esan nahi zinema arte ilusio- **eragile** bat denik, ez beste arteek baino sineste-fenomeno indartsuagoak eragiten dituenik ere, nahitaez. Josu Zabaleta

Kateatze horiek garrantzitsuak izan ziren, partez behintzat, baina hala ere ez dituzte ezkutatu behar estatubatuar ekonomiak munduko finantza-merkatuei eragindako hustearen ondorio egongaiztasun- **eragileak** . Koro Navarro

Politika horien eragin aldi berean errezesibo eta inflazio- **eragilearen** ondorioz. Koro Navarro

7 ***eragiledun*** *izlag*

Symbian OS sistema **eragiledun** telefonoen bidez hedatzen da birusa. Berria - Gaiak

8 *lo-eragile* ik **loeragile**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahalik eta eragile (7); **aldeko eragile** (10); **alderdi eta eragile** (24); **arloko eragile** (7); **baina eragile** (7); **batzorde eragile** (9); **bertako eragile** (6); **beste eragile** (41); **beste eragile batzuek** (7); **beste eragile batzuk** (6); **beste hainbat eragile** (6); **bi eragile** (5); **da eragile** (17); **dauden eragile** (7); **dira eragile** (6); **diren eragile** (9); **du eragile** (6); **duen eragile** (13); **dute eragile** (14); **duten eragile** (30); **duten eragile guztiek** (5)

eragile aktibo (10); **eragile aktibo izan** (5); **eragile aktiboa** (18); **eragile aktiboa izan** (6); **eragile asko** (13); **eragile askok** (18); **eragile askoren** (6); **eragile bakar** (6); **eragile bakarra** (13); **eragile bakoitzak** (19); **eragile bat** (21); **eragile batek** (6); **eragile batzuek** (17); **eragile batzuen** (7); **eragile batzuk** (17); **eragile berria** (5); **eragile bihurtu** (5); **eragile diren** (5); **eragile edo** (7); **eragile ere** (9); **eragile eta** (96); **eragile eta alderdi** (7); **eragile ezberdinekin** (7); **eragile garrantzitsua** (5); **eragile gehienak** (7); **eragile gehienek** (15); **eragile gisa** (17); **eragile guztiak** (30); **eragile guztiei** (41); **eragile guztiek** (47); **eragile guztiek parte** (11); **eragile guztiekin** (24); **eragile guztiekin bildu** (5); **eragile guztien** (50); **eragile guztien artean** (10); **eragile guztien arteko** (7); **eragile hori** (5); **eragile horiek** (23); **eragile horiek guztiek** (5); **eragile horien** (8); **eragile izan** (20); **eragile izan behar** (6); **eragile izatea** (11); **eragile nagusi** (7); **eragile nagusia** (33); **eragile nagusiak** (20); **eragile nagusietako** (5); **eragile orok** (5); **eragile ororen** (8); **eragile politiko** (142); **eragile politiko eta** (36); **eragile politiko guztiek** (9); **eragile politiko zein** (5); **eragile politikoak** (13); **eragile politikoei** (27); **eragile politikoek** (23); **eragile politikoekin** (7); **eragile politikoen** (16); **eragile politikoen artean** (7); **eragile politikoen arteko** (5); **eragile politikok** (6); **eragile pribatuen** (5); **eragile publiko** (8); **eragile publiko eta** (8); **eragile sozial** (49); **eragile sozial eta** (28); **eragile sozialei** (8); **eragile sozialek** (7); **eragile sozialekin** (13); **eragile sozialen** (9); **eragile ugari** (6); **eragile ugarik** (14); **eragile ugariren** (6)

erakunde eta eragile (5); **eta beste eragile** (9); **eta eragile** (141); **eta eragile guztiei** (6); **eta eragile guztiek** (8); **eta eragile guztiekin** (7); **eta eragile guztien** (7); **eta eragile politiko** (14); **eta eragile sozial** (6); **eta eragile ugarik** (5); **eta gizarte eragile** (28); **euskal eragile** (22); **euskal herriko eragile** (38); **faktore eragile** (8); **gainerako eragile** (7); **gizarte eragile** (105); **gizarte eragile askok** (5); **gizarte eragile eta** (23); **gizarte eragile guztien** (5); **gizarteko eragile** (7); **hainbat eragile** (28); **hainbat eragile eta** (6); **hainbat gizarte eragile** (8); **herri honetako eragile** (6); **herri osoko eragile** (6); **herriko eragile** (43); **herriko eragile politiko** (13); **herriko eragile sozial** (6); **hiru eragile** (6); **honetako eragile** (7); **horren eragile** (14); **horretan eragile** (5); **indar eragile** (6); **konponbidean eragile** (5); **kultur eragile** (15); **kultur eragile eta** (6); **lo eragile** (7); **mira eragile** (11); **osatzen duten eragile** (5); **osoko eragile** (6); **plazer eragile** (6); **sistema eragile** (7); **zenbait eragile** (16); **zien eragile** (6); **zuten eragile** (7)

batzorde eragilea (12); **batzorde eragileak** (28); **diren eragileak** (6); **duten eragileak** (15); **eragilea da** (11); **eragilea eta** (12); **eragilea izan** (6); **eragileak direla** (5); **eragileak ere** (8); **eragileak eta** (22); **eragileak ez** (12); **eragileak izan** (6); **eta eragileak** (13); **eta gizarte eragileak** (15); **euskal eragileak** (5); **euskalgintzako eragileak** (6); **gizarte eragileak** (48); **gizarte eragileak eta** (7); **haren eragilea** (5); **heriotzaren eragilea** (6); **herri eragileak** (6); **horren eragilea** (10); **horren eragileak** (5); **indar eragilea** (6); **sistema eragilea** (11); **sistema eragilean** (7); **sistema eragilean** (7)

alderdi eta eragileei (6); **alderdi eta eragileen** (8); **arloko eragileekin** (5); **beste eragileekin** (8); **diren eragileen** (5); **dute eragileek** (6); **duten eragileei** (5); **duten eragileek** (10); **duten eragileen** (10); **eragileei ere** (7); **eragileei eta** (13); **eragileek egin** (7); **eragileek egindako** (6); **eragileek eginiko** (5); **eragileek ere** (5); **eragileek eta** (15); **eragileek euskal** (5); **eragileek ez** (7); **eragileek ez dute** (5); **eragileekin batera** (10); **eragileekin bildu** (10); **eragileekin bilerak** (7); **eragileekin egin** (5); **eragileekin elkarlanean** (8); **eragileekin eta** (10); **eragileekin harremanak** (7); **eragileekin harremanetan** (8); **eragileen aldetik** (9); **eragileen artean** (66); **eragileen arteko** (45); **eragileen artekoa** (6); **eragileen ekarpena** (5); **eragileen ekarpenak** (6); **eragileen eta** (15); **eragileen iritziak** (6); **eragileen lana** (6); **eragileen ordezkaritza** (5); **eragileen proposamenak** (7); **eragileen ustez** (6); **eragileetako bat** (6); **eragileetako ordezkariak** (7); **eragileetako ordezkariek** (7); **eta eragileei** (22); **eta eragileek** (23); **eta eragileekin** (18); **eta eragileen** (25); **eta gizarte eragileei** (12); **eta gizarte eragileek** (25); **eta gizarte eragileekin** (11); **eta gizarte eragileen** (24); **euskal eragileei** (9); **euskal eragileen** (32); **euskal eragileen artean** (8); **euskal eragileen arteko** (11); **euskal herriko eragileek** (5); **euskal herriko eragileen** (9); **euskararen gizarte eragileen** (8); **gainerako eragileekin** (7); **gainerako eragileen** (8); **gizarte eragileei** (45); **gizarte eragileei eta** (6); **gizarte eragileek** (79); **gizarte eragileek eta** (9); **gizarte eragileekin** (44); **gizarte eragileen** (84); **gizarte eragileen artean** (7); **gizarte eragileen arteko** (7); **gizarte eragileen eta** (5); **gizarte eragileetako** (8); **herri eragileek** (6); **herri eragileen** (10); **herriko eragileek** (6); **herriko eragileen** (9); **kanpoko eragileek** (5); **kultur eragileek** (6)

batzorde eragileko (19); **batzorde eragileko kide** (5); **eragilek baino** (5); **eragilek baino gehiagok** (5); **eragilek bat** (9); **eragilek bat egin** (9); **eragilek egin** (5); **eragilek eta** (10); **eragileko kide** (6); **eragileren babesa** (10); **eragileren babesa jaso** (6); **eta eragilek** (9); **eta gizarte eragilek** (8); **gizarte eragilek** (60); **gizarte eragilek eta** (6); **gizarte eragilerekin** (7); **gizarte eragileren** (8); **hainbat eragilek** (62); **hainbat eragilerekin** (17); **hainbat eragileren** (17); **hainbat eragileren babesa** (6); **hainbat eragileri** (6): hainbat eragiletako (5); **hainbat gizarte eragilek** (23); **herriko hainbat eragilek** (5); **zenbait eragilek** (15)

---

eragiledun ik **eragile 7**.

---

eragiletasun *iz* eragilearen nolakotasuna.

Miresten zuen bere arrebaren **eragiletasuna** . Ramuntxo Etxeberri

---

eragiletza *iz* eragile izatea.

Gatazkaren konponbidean gainerako eragileekin batera, euskal preso eta iheslarien kolektiboari ere **eragiletza** aitortzeko eskatu zuten. Berria - Euskal Herria

«Errepresaliatuei dagozkien eskubideen aldeko lanean sakontzea», gizartearen aurrean haien «izaera politikoa eta **eragiletza** aitortzea». Berria - Euskal Herria

95etik hona, euskal errefuxiatuek «prozesu politikoan beren **eragiletza** bermatua izan dadin» nahi dutela azpimarratu zuten. Berria - Euskal Herria

Kolektiboari izaera politikoa eta **eragiletza** gizarteak berak aitortu behar dio lehenik, gure ustez. Berria - Euskal Herria

Euskal presoen kolektiboak **eragiletza** politikoa izatea zein ildotan planteatzen da? Berria - Euskal Herria

Preso politikoek gatazkaren konponbidean **eragiletza** politikorako duten eskubidea, preso politikoak subjektu gisa aitortzea edo amnistiaren kontzeptua bera. Berria - Euskal Herria

Euskal presoen izate politikoa eta **eragiletza** eskubidea onartzearen inguruan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eragiletza politikoa (5); **politikoa eta eragiletza** (3)

---

eragimen *iz* eragite ahalmena.

Ekintza programen **eragimena** hobetzeko gobernuek, enpresek eta gizarte zibilak elkarrekin eginiko aliantzak dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Garapen iraunkor bateranzko iragaitzak administrazioaren eta gizartearen pentsamoldeetan hainbat aldaketa behar dituela, **eragimenerantz** jotzearren, estilo ireki eta aktibo bat jorratzearren, eragile publiko eta pribatuekiko lankidetzaz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horrek guztiak baliabideen erabileran **eragimen** handiagoaz jardutea eskatzen du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erlijio ofizialaren defendatzaileek jazarririko mistiko bat izatearen aureolarekin, **eragimen** berria lortu zuen. Joan Mari Lekuona

Aurrerapen teknologikoa, ez dago dudarik, munta handiko **eragimen** iturria da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

eragin[1] *(**20.638** agerraldi, **281** liburu eta **6.918** artikulutan; ETCn **255.927** agerraldi)* dio *ad.* **1** zerbait egitera bultzatu; eginarazi. *(ikus beheko konbinatorian* eragin *aditzaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

akordua eragin (5); **aldaketa eragin** (18); **aldaketa eragin zuen** (7); **aldaketak eragin** (14); **aldaketarik eragin** (5); **arazo eragin** (9); **arazo larriak eragin** (5); **arazo ugari eragin** (6); **arazoak eragin** (29); **arazoak eragin zituen** (11); **arazoek eragin** (5); **arazorik eragin** (7); **areagotzea eragin** (9); **argi zerk eragin** (5); **arinak eragin** (9); **arinak eragin zituen** (5); **artean eragin** (5); **arteko eragin** (10); **asko eragin** (33); **asko eragin zituen** (5); **askok eragin** (5); **askorik eragin** (6); **atentatuek eragin** (6); **atzera eragin** (41); **atzera eragin zien** (5); **atzera eragin zion** (7); **atzerapenak eragin** (5); **auto ilarak eragin** (7); **baina eragin** (7); **baino eragin** (26); **baino eragin handiagoa** (11); **baino gehiago eragin** (13); **bakarrik eragin** (5); **barre eragin** (16); **barre eragin zion** (5); **barrea eragin** (7); **bat eragin** (119); **bat eragin dio** (7); **bat eragin du** (7); **bat eragin zidan** (9); **bat eragin zion** (17); **bat eragin zuen** (20); **bat eragin zuten** (6); **batek eragin** (72); **batek eragin du** (5); **batek eragin zion** (5); **batek eragin zuela** (7); **batek eragin zuen** (23); **baten eragin** (5); **baten heriotza eragin** (6); **bati eragin** (15); **bati eragin zion** (7); **batzuk eragin** (10); **beharra eragin** (7); **beldurra eragin** (18); **berak buruari eragin** (5); **berak eragin** (20); **bere eragin** (14); **berezia eragin** (9); **berezirik eragin** (5); **berriak eragin** (7); **bertan eragin** (5); **beste eragin** (12); **beste eragin batzuk** (6); **beste zerbaitek eragin** (5); **bestera eragin** (7); **bezala eragin** (5); **bezala eragin zion** (5); **biktima eragin** (10); **biktima eragin zituen** (5); **biktimarik eragin** (24); **biktimarik eragin gabe** (8); **bizia eragin** (10); **borrokak eragin** (5); **bortitza eragin** (5); **buruari eragin** (140); **buruari eragin dio** (6); **buruari eragin eta** (13); **buruari eragin nion** (5); **buruari eragin zion** (98); **camillok buruari eragin** (17); **da eragin** (6); **dardara eragin** (5); **desagertu eragin** (6); **desordena publikoa eragin** (5); **dimisioa eragin** (11); **du eragin** (27); **duela eragin** (6); **duen eragin** (27); **dute eragin** (15); **duten eragin** (10); **edo eragin** (9); **efektua eragin** (5); **egitea eragin** (17); **egitea eragin du** (6); **egiteak eragin** (6); **egonezina eragin** (6); **ehunka zauritu eragin** (5); **erabakiak eragin** (5)

Material berriak zabaltzen hasi direlako (plastikoak, zuntz optikoak, kautxu sintetikoa...), fidagarriagoak, **eragingarriagoak** eta merkeagoak. Koro Navarro

Azpimarratu izan dute [...] egitura txiki horiek, pikorrak eta marrak, oso **eragingarriak** direla metabolismoaren aldetik. Xabier Olarra

Oso **eragingarria** da Andres Lima eszena zuzendaria aktoreen artean egotea, nolabaiteko distantziamendu kritikoa sortzen duelako bere interbentzioekin. Berria - Kultura

• 3 *iz* eragiten duen gauza. ik **bultzagarri**.

Bi **eragingarri** oso polemiko. Berria - Ekonomia

Halakorik ez zela bazekien arren bere buruaren **eragingarri** bezala benetakotzat jo zuen hipotesia. Josu Landa

Batzuetan, berebiziko **eragingarri** batek mundu fisikora itzultzen gintuen. Juan Garzia

Bizimodu ekintzailearen **eragingarria** falta duena. Juan Martin Elexpuru

Ekologistak diote errauste planta bat egiten bada ez ditugula izango birziklatzeko **eragingarririk**. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hilketa-**eragingarria**: idazle bat garbitu zuen bere arrakastaren bekaitz zegoelako, eta gainerakoak ikertzaileen lana nahasteko. Jon Alonso

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Aldian-aldian haiengana makurtu, eta txantxaren bat edo beste egiten zien: are miresmen **eragingarriago** adin bereko gazteentzat eta mutikoentzat. Josu Zabaleta

Bada, edo izan daiteke, bederen, sentimendu moral bihotz-**eragingarri** horren manipulazioa, aldebikotasun arketipiko horri probetxua ateratzeko. Jon Alonso

Nire existentziako garai irri **eragingarriena**. Joxan Elosegi

Pentsa liteke tik bihurri eta konpultsio bitxiak nahiz portaera irri-**eragingarriak** dituen pertsona batek lanbide askotarako ateak itxiak izango dituela, baina ez dirudi hala denik. Xabier Olarra

Erlijioarekin, eta batez ere erlijioaren erabilera lo-**eragingarri** eta alienantearekin duen kezka biziari buruz jarduteko. Jon Alonso

Zenbait Silogismo nahasketa-**eragingarriren** eleketa mordoilo mamituak sartuz ahozkotasun oparoaz. Jon Alonso

Iruditu zitzaigun sentimendu nahasiz hartu zuela berri hori: bazuen nolabaiteko esperantza histeria besterik ez izateko, atzera-**eragingarria** baitzatekeen, hala izatera. Xabier Olarra

Oro har, legeak ez dira atzera-**eragingarriak**. Andres Urrutia

Galera sentsazioaz gain, oka-**eragingarri** eta anormala iruditzen zitzaion hasieran Jonathan I.ri ikusmenezko bere mundua. Xabier Olarra

Igurikapen-presio izugarri baten pean zegoen; eta ikustea bera ere nahasgarri eta leher-**eragingarri** zitzaion. Xabier Olarra

Estimuluak zenbat eta delitu-**eragingarriagoak** izan, orduan eta handiagoak izan behar dute gizakia delituetatik aldentzen duten oztopoek. Juan Martin Elexpuru

6 *atzera-eragingarri izond*

Ekitate fikzio batez, ezkontzari indar atzera-**eragingarria** ematen diote. Oro har, legeak ez dira atzera-**eragingarriak**. bazuen nolabaiteko esperantza histeria besterik ez izateko, atzera-**eragingarria** baitzatekeen, hala izatera. Andres Urrutia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino eragingarriagoa (5); **da eragingarri** (3); **da eragingarria** (3); **eragingarri eta** (3); **eragingarria da** (3); **eragingarria dela** (4); **eragingarria izan** (8); **eragingarria izango** (6); **eragingarriagoa da** (6); **eragingarriagoa lortzeko** (3); **eragingarriak izan** (3); **eragingarriak izango** (4); **eta eragingarria** (11); **eta eragingarria dela** (3); **eta eragingarriagoa** (4); **eta eragingarriak** (3); **irri eragingarria** (4); **modu eragingarriagoan** (3); **modu eragingarrian** (5); **oso eragingarria** (5)

---

eragingarritasun **1** *iz* eragingarria denaren nolakotasuna.

Segurtasun indarren **eragingarritasuna** maiz izan da auzitan jarria Errusian. Berria - Mundua

Poliziaren **eragingarritasun** guztia daukazu alde. Rafa Egiguren

Ez diote arretarik jartzen mekanismoaren **eragingarritasunari**, osagarrien antolamenduari baizik. Juan Garzia

Sineskeria horrek jota daudenek estilotzat daukatena ez da orrialde baten **eragingarritasun** edo **eragingarritasunik** eza, idazlearen itxurazko trebezia han-hemenkakoak baizik. Juan Garzia

Bizi eta egokitua nahi du Portalisek lege zibila, **eragingarritasun** osokoa izan dadin. Andres Urrutia

2 (hitz elkartuetan)

Ipar-Hegoko egiturak: Egun dauden erakundeen kostu **eragingarritasuna** eta erakunde berriak abiatu edo ez aztertu Berria - Mundua

---

eragingor ik **eraginkor**.

---

eragingune *iz* eragite gunea.

Arrisku handiena dutenak haurrak direla nabarmendu zuen, «horiek igaroko baitute denbora gehien gai kaltegarrien **eragingunean**». Berria - Euskal Herria

---

eraginka *adlag* eragin eginez.

Horrela goldelari urtetsua, buruari **eraginka**, noiznahi kexu da bere neke handiak alferrik izan direla eta. Xabier Amuriza

Aurreratu zuen ba ahal adina bere kokotsa eta laster ziren, urontzia hura zeriola eta andereñoa xaboibilez kokots bizarrari **eraginka**. Patxi Ezkiaga

Berak eragozten eta zapuzten baitu ernaltzea, ipurdiari **eraginka** gizonaren irritsa jostakor suspertzen eta, gorputza zauliturik, jarioa erakartzen badu. Xabier Amuriza

Patxada ederrean eta urrats beti-berdinak eginez, noizean behin gandorrari leunki **eraginka** eta burua alde batera jiratuz, zerbaiti belarri emateko bezala. Jose Morales

Libertigarriak iruditzen zitzaizkidala euren dantza modernoak, ikusgarriak oso, jauzikaldi existentzialista haiek, nor bere zilborrarentzat dantzaka, nor bere imintzioak **eraginka**, nor bere hankak bihurrika. Joxe Austin Arrieta

Ez zinen, bada, buru-**eraginka** jarduten, hartaz hitz egiten zenuen bakoitzean? Elizen arteko biblia

---

eraginki *adlag* eragiten.

Alferrik **eraginki** barregarri hegala... Juan Garzia

---

eraginkor *(**1.530** agerraldi, **126** liburu eta **860** artikulutan; ETCn **22.998** agerraldi)* *izond* nahi edo espero den ondorioa lortzen duena; eragina duena. ik **eragile**.

Gasteiztarrek azken txanpan baino ez zuen bilatu aurkariaren erritmo **eraginkorra** apurtzea. Berria - Kirola

Formula **eraginkorra** da, edozein limurtzeko modukoa. Berria - Kultura

Dialektika gaizto hori **eraginkorra** izan da oso istorio faltsu bat eraikitzeko. Berria - Mundua

Denbora jakin batean izaten dira **eraginkorrak** botikak. Berria - Gaiak

Bitartean Liu Pang-ek neurri **eraginkorrak** hartu zituen botere inperialaren nagusitasunari eutsi eta areagotzeko. Iñaki Mendiguren

Gaixotasun horren aurkako neurri **eraginkorrena** prebentzioa da. Berria - Harian

Horretarako urteotan urrats **eraginkorrak** egiten ari direla esan zuen. Berria - Gaiak

Haren ekipoari ezinezkoa egin zitzaion, etorkizunean, denboraren makina **eraginkorrik** eraikitzea. Iban Zaldua

Oso tresna **eraginkorra** da komunikazioa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zinemak oso errealitate-ilusio **eraginkorra** sortzen duela, denboraz eta bolumenaren ordezko onargarri batez, sakontasunaz, baliatzeko gai delako. Josu Zabaleta

Behinola Indiako azpikontinentearen zatirik handienean subiranotasun **eraginkorra** zertu zuen inperioa. Iñaki Mendiguren

Ekonomilari askoren ustez, politika keynesianoa bideragarria eta **eraginkorra** izan dadin, ziklikoa izan behar luke. Iñaki Heras

Irtenbide sinplea eta **eraginkorra** eman dio giza gorputzak arazo horri. Irene Aldasoro

Muntaketa-kate likido, banaketa-sare eta hondakinak biltzeko sistema ez ezik, gorputzaren berotze-sistema (eta freskatze-sistema) **eraginkorraren** funtsa eta infekzioen aurkako babes-mekanismoa da odola. Irene Aldasoro

Ioien mugimenduaren bidez transmititzen da seinalea, modu korapilatsu baina **eraginkorrean**. Irene Aldasoro

Zirkulazio-sistemak berak ixten ditu bere ihesbideak, eta badu bere burua zigilatzeko mekanismo konplikatu baina **eraginkor** bat. Irene Aldasoro

Kartilagoak eta likido sinobialak naturalki eratzen duten bezain lubrikazio-sistema garbi eta **eraginkorrik** ez dute oraindik aurkitu ingeniariek. Irene Aldasoro

Difusioa ez da **eraginkorra** milimetro bat baino gehiagoko distantziara. Irene Aldasoro

Metodo sinple hori oso **eraginkorra** da identifikaziorako eta oharpenerako. Irene Aldasoro

Ehunka harrapatzen dituzte sistema zaharkitu baina arras **eraginkorrari** esker. Elena Touyarou

Gaur egun dauden beste metodo seguruago eta **eraginkorrago** batzuek, baina, erabat alboratu dituzte. Luis Elberdin

Beharkizun honek **eraginkorrago** bihurtuko ahal du. Joxan Elosegi

EBk azaldu du kudeaketa ekonomiko **eraginkorragoa** lortzeko tresnak eta arauak aztertzen ari dela. Berria - Ekonomia

Sistema pedagogiko **eraginkorrenak** zer ezaugarri izan behar dituen zehazteko. Berria - Harian

Birusaren eraldaketa galarazteko modurik **eraginkorrena** tratamenduari fin eustea eta dosi guzti-guztiak dagozkionean hartzea dela azpimarratu zuen Garaik. Berria - Euskal Herria

Argentinako presidente Nestor Kirchenerrekin bat etorri zen Musharraf nazioarteko erakunde «demokratikoagoa, gardenagoa eta **eraginkorragoa**» eratu behar dela esaterakoan. Berria - Mundua

Emakumeak, gizonak bezala, modurik **eraginkorrenean** masturbatzen dira. Luis Elberdin

Maitasun **eraginkorrez**, Jaunagan begiak tinko edukiz. Joan Mari Lekuona

Bizitza maila honetan, jaunartzea da eskuera daukagun laguntza, errealena, ziurrena eta **eraginkorrena**. Joan Mari Lekuona

Soilik zigor **eraginkorrak** jartzen hasteak aldatuko luke egoera. Berria - Ekonomia

Eraginkorrak edo eragingabeak dira. Berria - Gaiak

Eraginkorragoa da kutsadurari prebentzioaren bidez aurre egitea. Berria - Euskal Herria

Emile Larre zuzendariak errepikatu zituen aintzineko astean HERRIA-n ezarri solasak, erakutsiz HERRIA-rentzat zoin goxo, balios, **eraginkor** eta atsegingarri zen Piarres Lafitte zenaren itzala. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eraginkor (6); **bezain eraginkor** (6); **botika eraginkor** (3); **eraginkor bat** (29); **eraginkor batean** (5); **eraginkor baten** (9); **eraginkor batez** (5); **eraginkor eta** (25); **eraginkor horren** (3); **estrategia eraginkor** (3); **eta eraginkor** (13); **hain eraginkor** (3); **modu eraginkor** (11); **modu eraginkor batean** (3); **modu eraginkor eta** (4); **oso eraginkor** (3); **sistema eraginkor** (4); **tresna eraginkor** (4)

azkarra eta eraginkorra (3); **babes eraginkorra** (5); **babes judizial eraginkorra** (3); **baina eraginkorra** (10); **baliabide eraginkorra** (4); **bat eraginkorra** (3); **batere eraginkorra** (5); **benetan eraginkorra** (7); **bezain eraginkorra** (6); **bide eraginkorra** (3); **da batere eraginkorra** (4); **da eraginkorra** (13); **dela eraginkorra** (7); **egokia eta eraginkorra** (3)

eraginkorra behar (7); **eraginkorra behar du** (3); **eraginkorra da** (40); **eraginkorra dela** (28); **eraginkorra delako** (6); **eraginkorra den** (22); **eraginkorra egin** (9); **eraginkorra egingo** (4); **eraginkorra egitea** (3); **eraginkorra egiteko** (3); **eraginkorra egiten** (3); **eraginkorra eman** (3); **eraginkorra ere** (3); **eraginkorra eta** (24); **eraginkorra ez** (7); **eraginkorra izan** (65); **eraginkorra izan behar** (6); **eraginkorra izan da** (5); **eraginkorra izan dadin** (11); **eraginkorra izan daiteke** (3); **eraginkorra izan daitekeela** (4); **eraginkorra izan daitekeen** (3); **eraginkorra izan dela** (3); **eraginkorra izan nahi** (3); **eraginkorra izan zen** (8); **eraginkorra izanen** (3); **eraginkorra izango** (24); **eraginkorra izango bada** (4); **eraginkorra izango dela** (3); **eraginkorra izango den** (6); **eraginkorra izanik** (3); **eraginkorra izatea** (5); **eraginkorra izateaz** (4); **eraginkorra izateaz gain** (4); **eraginkorra izateko** (19); **eraginkorra izaten** (6); **eraginkorra osatu** (4); **eraginkorra ote** (5); **eraginkorra ote den** (3); **eraginkorra zen** (7)

erantzun eraginkorra (4); **ere eraginkorra** (4); **estrategia eraginkorra** (3); **eta eraginkorra** (65); **eta eraginkorra da** (6); **eta eraginkorra dela** (3); **eta eraginkorra izan** (9); **eta eraginkorra izango** (3); **ez da eraginkorra** (6); **ez dela eraginkorra** (6); **gure lana eraginkorra** (3); **guztiz eraginkorra** (4); **hain eraginkorra** (3); **hartze eraginkorra** (3); **hizkuntza politika eraginkorra** (3); **hori eraginkorra** (3); **horren eraginkorra** (3); **joko eraginkorra** (8); **judizial eraginkorra** (4); **kanpaina eraginkorra** (3); **konponbide eraginkorra** (3); **kudeaketa eraginkorra** (7); **laguntza eraginkorra** (4); **lan eraginkorra** (3); **lana eraginkorra** (5); **lana eraginkorra izan** (4); **legea eraginkorra** (4); **neurri eraginkorra** (4); **oso eraginkorra** (30); **oso eraginkorra da** (5); **oso eraginkorra izan** (6); **oso tresna eraginkorra** (3); **politika eraginkorra** (9); **predikazio eraginkorra** (3); **sistema eraginkorra** (10); **talde eraginkorra** (4); **tresna eraginkorra** (17); **tresna eraginkorra da** (5); **tresna eraginkorra izan** (3); **txerto eraginkorra** (4); **urte eraginkorra** (3); **urte eraginkorra izan** (3); **zein eraginkorra** (3); **zein eraginkorra den** (3); **zerbitzu eraginkorra** (3)

askoz eraginkorragoa (6); **askoz ere eraginkorragoa** (4); **aurkako gerra eraginkorragoa** (3); **baino eraginkorragoa** (11); **baino eraginkorragoak** (6); **baino eraginkorragoak direla** (4); **eraginkorrago batean** (3); **eraginkorragoa behar** (4); **eraginkorragoa da** (13); **eraginkorragoa dela** (7); **eraginkorragoa egiteko** (3); **eraginkorragoa eta** (10); **eraginkorragoa izan** (24); **eraginkorragoa izan dadin** (3); **eraginkorragoa izan zen** (5); **eraginkorragoa izango** (8); **eraginkorragoa izatea** (4); **eraginkorragoa izateko** (3); **eraginkorragoa zen** (5); **eraginkorragoak dira** (5); **eraginkorragoak direla** (6); **eraginkorragoak eta** (3); **eraginkorragoak izan** (6); **eraginkorragoak izango** (5); **eraginkorragoak izango dira** (4); **eraginkorragoak izateko** (3); **ere eraginkorragoa** (5); **ere eraginkorragoa izango** (3); **eta eraginkorrago** (12); **eta eraginkorragoa** (17); **eta eraginkorragoa behar** (3); **eta eraginkorragoa izan** (4); **eta eraginkorragoak** (12); **gero eta eraginkorragoak** (4); **gerra eraginkorragoa** (3); **modu eraginkorragoan** (6); **neurri eraginkorragoak** (7)

baina eraginkorrak (3); **bermatzeko neurri eraginkorrak** (3); **bezain eraginkorrak** (3); **botika eraginkorrak** (3); **dira eraginkorrak** (15); **egiteko neurri eraginkorrak** (4); **eraginkorrak abian** (5); **eraginkorrak aldarrikatu** (3); **eraginkorrak behar** (4); **eraginkorrak dira** (11); **eraginkorrak direla** (6); **eraginkorrak egin** (4); **eraginkorrak egiteko** (3); **eraginkorrak egiten** (4); **eraginkorrak eman** (3); **eraginkorrak eskatu** (10); **eraginkorrak eskatu zituen** (3); **eraginkorrak eskatu zituzten** (3); **eraginkorrak eta** (11); **eraginkorrak exijitu** (4); **eraginkorrak ez** (4); **eraginkorrak har** (4); **eraginkorrak har ditzatela** (3); **eraginkorrak hartu** (10); **eraginkorrak hartu behar** (3); **eraginkorrak hartzeko** (3); **eraginkorrak hartzen** (3); **eraginkorrak izan** (25); **eraginkorrak izan dira** (3); **eraginkorrak izan direla** (4); **eraginkorrak izan ziren** (6); **eraginkorrak izango** (4); **eraginkorrak izatea** (6); **eraginkorrak izateko** (12); **eraginkorrak izaten** (5); **eraginkorrak izaten dira** (3); **eraginkorrak lortzeko** (3); **erasoan eraginkorrak** (4); **eta eraginkorrak** (20); **eta eraginkorrak izan** (4); **eta erasoan eraginkorrak** (3); **eta neurri eraginkorrak** (3); **ez dira eraginkorrak** (9); **hain eraginkorrak** (3); **horiek eraginkorrak** (4); **neurri eraginkorrak** (48); **neurri eraginkorrak aldarrikatu** (3); **neurri eraginkorrak eskatu** (9); **neurri eraginkorrak eta** (3); **neurri eraginkorrak exijitu** (4); **neurri eraginkorrak hartu** (7); **neurri eraginkorrak hartzen** (3); **neurriak eraginkorrak** (3); **neurriak eraginkorrak izan** (3); **oso eraginkorrak** (16); **oso eraginkorrak dira** (5); **pauso eraginkorrak** (4); **politika eraginkorrak** (9); **teknika eraginkorrak** (3); **tresna eraginkorrak** (6); **urrats eraginkorrak** (8); **urrats eraginkorrak egiteko** (3)

ahalik eta eraginkorrena (5); **bermatzeko modurik eraginkorrena** (4); **biderik eraginkorrena** (16); **biderik eraginkorrena dela** (4); **era eraginkorrean** (4); **eraginkorrena da** (12); **eraginkorrena dela** (12); **eraginkorrena eta** (6); **eraginkorrena izan** (7); **eraginkorrik ez** (12); **eta eraginkorrean** (5); **eta eraginkorrena** (21); **eta eraginkorrena izan** (3); **eta eraginkorrik** (3); **eta modu eraginkorrean** (5); **modu eraginkorrean** (33); **modu eraginkorrena** (5); **modurik eraginkorrena** (21); **modurik eraginkorrenean** (3); **neurri eraginkorrena** (3); **neurri eraginkorrik** (6); **neurririk eraginkorrena** (6); **tresna eraginkorrena** (3); **tresnarik eraginkorrena** (4)

---

eraginkorki 1 *adlag* eraginkotasunez.

Eliza "erditu berriek" zibilizazio jaio berriei egindako ekarpen politikoetatik kulturaletara igarotzen garenean, zera aurkitzen dugu: adibidez, mahayana, jokaleku politikotik kanporatuta, **eraginkorki** finkatu zela berriro kulturaren eremuan. Iñaki Mendiguren

"Berezko" bide nagusiak -ibaiak, itsasoak eta estepak- ez baitira komunikabide erabilgarriak, **eraginkorki** zainduta izan ezik. Iñaki Mendiguren

Gaur egun ziur dakigu gure alabaren heriotza ez zuela suge-pozoiak eragin, berau serum-injekzioaren bitartez **eraginkorki** indargabetua izan baitzen; heriotza burezur-basearen haustura ez-diagnostikatuaren ondorio izan zen. Joxe Austin Arrieta

Mendebaldean "judu-erlijioko" burges edo burges agnostiko bihurtzea hautatzen zuen banako juduak bezain **eraginkorki** lan egiten zuela sionismoak juduak Mendebaldeko jentilen mundura asimilatzeko. Iñaki Mendiguren

Feminismoak Eusko Legebiltzarrean egon behar du berdintasunerantz **eraginkorki** aurrera egiteko. Berria - Harian

Eraginkorki, azantz handirik gabe, mezako giro kartsua nahasi gabe ibili dira gure inguruan. Herria

---

eraginkortasun *(**540** agerraldi, **47** liburu eta **329** artikulutan; ETCn **9.862** agerraldi)* **1** *iz* eraginkorra denaren nolakotsuna.

Ikasteko sistemen **eraginkortasuna**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Armada batek ez du **eraginkortasunik** soldadu pila bat bihurtzen denetik. Josu Zabaleta

Haren hitzen **eraginkortasuna** bihotzak bat-batean aldatzeko. Askoren artean

Eguzkiari indartu egin zaio, nonbait, bere beroaren **eraginkortasuna**. Pako Aristi

Diru politikaren **eraginkortasunari** buruz (bi **eraginkortasun** motei buruz, alegia, efikazia eta efizientziari buruz), beharrezkoa da esatea, oro har, eztabaida sakona eta zabala izan dela nagusi. Iñaki Heras

Herrialde guztiek indarkeriari aurre egiteko onartu diren neurriak ezartzea eta euren **eraginkortasuna** bermatzea da helburu nagusia. Berria - Mundua

Jokoa tarteka antzekoa izan dela ikusi dugu, baina **eraginkortasuna** oso desberdina izan da. Berria - Kirola

Jendea, ordea, grebaren **eraginkortasuna** zalantzan jartzen hasita zegoen. Jon Maia

Azken urteotako estrategiaren **eraginkortasuna** berresten du gutunak. Berria - Euskal Herria

Askoren ustez, Legearen **eraginkortasuna** neurtzeko froga izango dira aurtengo alardeak. Berria - Harian

Baliabideen **eraginkortasuna** azken kontsumora begira hobetzea helburu desiragarria da, baliabide hori berriztagarria edo berriztaezina izan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zeren araberakoa da txerto baten **eraginkortasuna**? Berria - Gaiak

Hiesaren kontrako botikek **eraginkortasuna** galdu dutela esan dute adituek. Berria - Gaiak

Nola elkartu **eraginkortasuna** eta edertasuna? nora doa teknika eta nora arte ederrak? Askoren artean

Etxekoandrea, munduko erosketen zati handi bat egiten duena, ez da aukeratzen kudeatzaile gisa duen **eraginkortasunagatik**, ezta baztertzen ere bere **eraginkortasunik** ezagatik. Iñaki Mendiguren

Gorputzean ere, makina gehienetan bezala, oso desiragarria da pisua kentzea, erregaia aurreztu eta **eraginkortasuna** areagotzen baita hartara. Irene Aldasoro

Arazo hau, ikusi dugun bezala, Ingalaterran konpondu zen, lehenik maila politikoan Alpeez bestaldeko Erdi Aroko parlamentuaren erakundeari **eraginkortasuna** emanez, eta gero ekonomiaren mailan industri iraultzaren bidez. Iñaki Mendiguren

Aurrerapen hori ekoizpenaren **eraginkortasunaren** hazkundetik dator hutshutsik, hau da, produktibitatearen hazkundetik. Koro Navarro

Barkamena eskatu nahi dizuet kazetarioi, baina badakizue gauza hauek isilpean egin beharrekoak direla, **eraginkortasunaren** mesedetan. Joan Mari Irigoien

Era horretako neurrien **eraginkortasunari** dagokionez, aplikazioa orokorra den ala ez da garrantzitsuena. Koro Navarro

Pragmatismoak, **eraginkortasunean** oinarrituriko jarrera horrek, aurrean jartzen zaizkion aukera eta gertakizun guztiak baliatzen ditu. Anjel Lertxundi

Eraginkortasunik gabeko *limes* banatzailean zehar kanpotik sartu ziren ondasun guztien artetik, gerra-armak izan ziren agian esanguratsuenak. Iñaki Mendiguren

Merkatu eragileek automatikoki eta **eraginkortasunez** funtzionatzea da helburua. Iñaki Heras

Liburutegi helenikoa fisikoki bertan zegoen denbora guztian, baina ezin zen **eraginkortasunez** ireki Mendebaldeko jendea edukiak irakurtzeko gai izan arte. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Dastamen-papilak nerabezaroan iristen dira garapen osora, eta **eraginkortasun** osoa mantentzen dute berrogeita bost urte arte. Irene Aldasoro

Behar diren ahalegin guztiak egingo ditu **eraginkortasun** orokorreko lan hitzarmenetan akordioak egon daitezen. Berria - Ekonomia

Ikuspegi horretatik ere **eraginkortasun** ekonomikoa eta berdintasuna elkarri kontrajarri izan dira. Iñaki Heras

Orain definitzen ahalegindu naizen adigaien **eraginkortasun** deskriptiboa. Xabier Arregi

Ez dugu kristautasunaren **eraginkortasun** tenporalean aski sinesten. Etxean neskame eta morroiak galtzeak klase haren **eraginkortasun** profesionala ere hondatzeko arriskuan jartzen zuen. Piarres Xarriton

Mugaz bestaldeko barbaroen **eraginkortasun** militar gero eta handiagoa orekatzeko. Iñaki Mendiguren

Bere interes propioaren alde egiterakoan, gizabanakoak sarritan gizartearen interesaren alde **eraginkortasun** handiagoaz egiten du, interes horren alde egitea propio erabakita ariko balitz baino. Piarres Xarriton

Bigarren erronka honek **eraginkortasun** desberdineko hainbat erantzun alternatibo sortarazi zituen. Iñaki Mendiguren

Ez dago motor termikorik, ondoen diseinatua dela ere, 100 ºC iritsi gabe % 25eko **eraginkortasuna** iritsiko duenik. Irene Aldasoro

Izan ote zitekeen Mendebaldeko munduaren gainerakoarentzat baliagarria italiar eta flandestar **eraginkortasun** hori nazio-mailako terminoetara aldatuz? Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herrialdea, eskualdea eta herria aukeratu eta gero, Altsasuko euskararen erabilera, ezagutza, **eraginkortasun** indizea (erabilera eta ezagutzaren arteko ratioa) eta matrikulazio datuak erakutsiko dizkigu. Berria - Euskal Herria

Akemenestar Inperioan, munduko zati berean bi mila urte geroago, erakunde berberak antolaketa eta **eraginkortasun**-maila handiagoarekin aurkitzen ditugu. Iñaki Mendiguren

Elkarteak dio Jaurlaritzak «**eraginkortasun** falta» ezkutatu nahi duela. Berria - Euskal Herria

Eraginkortasun eza nabaria da auzapezak ez direlako biltzen. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikusmolde neoklasikoa, beraz, urritasun erlatiboan oinarritzen da berriz ere trukea azaltzeko, hau da, osagarritasunean, ez ekoizpen-**eraginkortasun** erlatiboan, alegia, konkurrentzian. Koro Navarro

Mendebaldeko Kristandadean, erlijiozko eszeptizismoaren piztualdiarekin batera, administrazio-**eraginkortasunean** aurrerakada eta ilustrazio politikoaren sorrera gertatu ziren. Iñaki Mendiguren

Ekonomi **eraginkortasunaren** helbururantz egiten ari ziren ibilaldi luzean, Mendebaldeko herrien zutabearen ekialdeko atzegoardiak ere itxuraldaketa izango zuen. Iñaki Mendiguren

Lan erretoriko inprobisatuak ziurtatu zuen azken puntuaren komunikazio-**eraginkortasuna**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino eraginkortasun (3); **du eraginkortasunik** (3); **eraginkortasun energetikoa** (3); **eraginkortasun eskasa** (7); **eraginkortasun eta** (9); **eraginkortasun eza** (10); **eraginkortasun falta** (3); **eraginkortasun gutxi** (5); **eraginkortasun gutxi erakutsi** (3); **eraginkortasun handia** (4); **eraginkortasun handia duela** (3); **eraginkortasun handiagoa** (6); **eraginkortasun handiagoaz** (3); **eraginkortasun handiena** (5); **eraginkortasun handirik** (3); **eraginkortasun hori** (5); **eraginkortasun maila** (4); **eraginkortasun mugatua** (3); **eraginkortasun mugatuko** (10); **eraginkortasun mugatuko lan** (4); **eraginkortasun orokorreko** (3); **eraginkortasunari buruz** (3); **eraginkortasunari dagokionez** (3); **eraginkortasunez aurre** (3); **eraginkortasunez aurre egiteko** (3); **eraginkortasunik ez** (7); **eraginkortasunik ez duten** (3); **eraginkortasunik eza** (3); **eraginkortasunik gabe** (4); **eta eraginkortasun** (27); **eta eraginkortasun mugatuko** (3); **eta eraginkortasunean** (4); **eta eraginkortasunez** (7); **ez du eraginkortasunik** (3); **planak eraginkortasun** (3); **zer eraginkortasun** (3)

---

eraginpe ik **eragin**[2] **5**.

---

eragintasun *iz* eraginkortasuna.

Eragintasuna erakutsi dute Angeluarrek 2/1-eko garaipena ardietsiz baina zaila izan da lorpena. Herria

---

eragintxo *iz* eragin txikia.

Baltzaren burutazioak hemen jasotzeko arrazoia ez da adiskideari omenaldia egitea, ezpada bere liburuko ideiak lagungarri eta akuilu zaizkidala nire hau taxutzeko, **eragintxo** horren nondik norakoa ikusten erraza ez izan arren. Xabier Mendiguren Elizegi

Elkartea beti egon da horren atzetik eta pentsatzen dugu gure **eragintxoa** ere izan dugula hori onar zedin. Berria - Euskal Herria

Familia onekoa zen arren eta irakurtzen ere bazekien arren, magiaren munduak erakartzen baitzuen, halako tailuz, non bera ere, denboraren denboraz, azti bihurtu baitzen, inguruko jauntxoen artean bere **eragintxoa** izanen zuena. Joan Mari Irigoien

Ez ote zezakeen, edo ez ote zuen izanen aitzinago, ondorez, bere **eragintxoa** haren baitan eta haren deliberamenduetan? Joan Mari Irigoien

Badirudi neure buruari ere aitortu ez diodan itxaropena neukala, bide batez entzuleen iritzi eta jarreretan bere **eragintxoa** izango ote zuten neure hitzalditxoek. Joxerra Garzia

---

eragintza *iz* bulkada, eragina.

Baina oraindik ez da ona arima, hobea izateko nahimenaren **eragintza** falta bazaio. Imanol Unzurrunzaga

Zer duda, Miranderi Frantziako **eragintza** hurbilago geratzen zitzaiola; guri, Miranderen euskal irakurle hegoaldekoari alegia [...], ezagunagoa egiten zaigu Espainiakoa ezinbesteko gure probintzianismo espainolean. Joxe Azurmendi

Grina hori asea izan ere dadin baino lehen, eta ni maitaturik azkenik bere adinari dagokion gisara, zu baino **eragintza** gehiagoz ari izan litekeela nire zorionaren eta nire plazerren alde lanean. Jon Muñoz

Aspaldidanik jabetua naiz ezen bide hori, nahiz ez den neskatxa gazte bat seduzitzeko beti erabili behar, ezinbertzekoa izaten dela, bai usu **eragintza** handienekoa ere, neska nahi delarik galbidera lerrarazi. Jon Muñoz

Sektore anitzeko erakundea antolatzen ari gara; elkar **eragintza** hori aberasgarria delako. Berria - Harian

Mira-**eragintzakoak** direla hemen gertatzen diren gauza guztiak. Patxi Ezkiaga

---

eragipen *iz* eragina.

Dena dela, Nietzsche baitan **eragipena** izan dutenak, ez dira izan sofistak bakarrik, "naturalismo" greko guztia baino, aldi heroikotik Athenai klasikoraino. Joxe Azurmendi

---

eragite *iz* zerbait egitera bultzatzea; eginaraztea.

Bestalde, haziari buruz bakarrik hitz egiten zuten; beraz, badirudi eskuari **eragite** hori "gizonen gauza" zela bakarrik. Luis Elberdin

Proteina-eredu bat, alegia, zeinaren hiru dimentsioko formaren eta karga elektrostatikoaren agindupean baitaude ezagutze- eta **eragite**-gaitasunak. Juan Garzia

Eta Alontso korellarrak esan bezala, buruko hezetasunak doministiku maizago **eragite** horrek, ez ote digu euskarazko izenaren etimologia bera sinalatzen? Patziku

Perurena

---

eragiteke *adlag* eragin gabe.

Ingurumen teknologiak garapen bidean dauden herrialdeen eskura jarri behar dira, hedapen handia izateko baldintzetan betiere, eta herrialde horiei gehiegizko zama ekonomikoa **eragiteke**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Informazioak garaiz iritsi behar du, argia eta ulergarria izan, eta eskuragarri egon behar du, eskatzailearentzat inolako zama finantzariorik **eragiteke**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

eragole *izond* ari dena, diharduena.

Proposamen bat egiten ziotenean, aste luzeak ematen zituen erantzuna emateko, aukera berri horiek egiatan aztertuko balitu bezala, nahiz eta sakonean har **eragole** batek esaten zion itxurak baino ez zela egiten ari. Berria - Kultura

---

eragon, eragon, eragoten du *ad* ari izan, jardun.

Bizkaiko kasuan, sarri aipatu da **eragon** aditza, 'ari izan, jardun' esan nahi duena. Koldo Zuazo

---

eragotzi *(1.798 agerraldi, 174 liburu eta 739 artikulutan; ETCn 18.026 agerraldi)*, eragotz, eragozten **1** du *ad* zerbait egiten edo burutzen ez utzi. ik **galarazi 2; poxelatu; debekatu**.

-Ezin izan dut **eragotzi** -esan zuen Ronek, kezkatuta-. Iñaki Mendiguren

Zemai egin ere bai, buruz beherako orekan jarriko zela gure hamaseigarren solairuko balkoiko eskubandaren gainean, eta nik ozta-ozta **eragotzi**. Joxe Austin Arrieta

Nola **eragotzi** eraso sektarioak? Berria - Harian

Txapeldunen Ligak ez du **eragotziko** jokalarien salmenta. Berria - Kirola

Mendeku hartuko dut, ez dit inork **eragotziko**. Elizen arteko biblia

Delituak **eragozteko** eginkizuna ez betetzea edo desobedientzia delitua egitea. Berria - Euskal Herria

Neba aurki ikusteko itxaropenak eta irrikak urduritu, eta loa **eragotzi** zioten. Xabier Montoia

Asko pozten da deabrua, Jainkoaren zerbitzariari otoitz garbitik eta beste egintza onetatik datorkion bihotzeko debozioa eta alaitasuna itzaltzea edo **eragoztea** lortzen duenean. Askoren artean

Hankaz **eragotzi** zidan saioa. Inazio Mujika Iraola

Nire desio bakarra, jendearen sufrimendua **eragoztea** litzateke. Herria

Aberastasunen metaketa ikusgarria izan zen hiri haietan, baina barne-merkatu benetakoaren faltak hazkundea eta industria-kapitalismorako igarobidea **eragotzi** zituen. Koro Navarro

Europak urtetan immigrazioa **eragotzi** du, arrazoi arrazistengatik, eta orain bere kanpoko mugetan jendea hiltzen uzten du. Berria - Mundua

Ribarrojak euskal taldeen arteko finala **eragotzi** zuen, Itxakori 24-19 irabazita. Berria - Kirola

Minez segitzen zuen, iduneko plastikozkoak **eragotzi** egiten zion mugimendurik txikiena ere. Hasier Etxeberria

Egiptotik igotzean bidea **eragotzi** baitzion. Elizen arteko biblia

Gregorio Aita santu handiak ahal zuen guztia egin zuen gaitzari neurria hartzeko, basakeria **eragotzi** eta erasoak baretzeko. Askoren artean

«Ezkerraren eragina areagotuz, UPN-PPren gehiengoa **eragoztea**» da IUN-NEB taldearen asmoa. Berria - Euskal Herria

Herritarrek, hala ere, badakite estatua oso ahula dela eta aste batean ez dela gai izan bost ekintza terrorista **eragozteko**. Berria - Mundua

Mutilaren kalez-kaleko itxurak, edertasunaren ikuskizuna **eragotzi** ordez, indartu egiten zuen kontrastez, belar apalen konpainiak lore-sorta biziak distiragotzen dituen gisa. Anjel Lertxundi

Gure Jainkoaren aurrean zuzen jokatuz, gure hondamendia **eragotzi** duzu. Elizen arteko biblia

Norak ezin izan zuen **eragotzi** lurrera begiratzeko zirkina. Anjel Lertxundi

New Delhiko gobernuari hilketak **eragotzi** ez izana leporatzen zaio. Berria - Mundua

Londresen atentatu kimiko bat **eragotzi** dutela zabaldu zuen atzo BBC kateak. Berria - Ekonomia

Prelatu eta bestelako asko baita Erromako kurian zure Ordenaren ona **eragotzi** nahiko lukeena. Monika Etxebarria

Doi-doi **eragotzi** nuen mutur okerra: konpetentziakoa zen. Aingeru Epaltza

Neutrofiloek minbizia garatzea **eragotzi** dezaketela uste dute. Berria - Gaiak

Kontua ez da aztertzea aurkikuntza hori **eragotzi** duten trabak. Xabier Arregi

Gizonen legeek ezin dute **eragotzi** nahasmendua eta bidegabekeria atseginaren eta oinazearen erakarmen kontaezin eta kontrajarrietan. Juan Martin Elexpuru

Badugu biharamuneko pilula, nahi gabeko haurdunaldia **eragozteko** metodo azkarra eta eraginkorra. Luis Elberdin

Nolako helburuaz **eragotzi** behar zaie gizakiei elkarri kalte egiten? Xabier Kintana

Maizak ezin izan zuen **eragotzi** begirada zoko kitzikagarrira joan zekion. Migel Angel Mintegi

Atxilotu zutenez geroztik, bere burua Heinz Ches gisa eta poloniartzat aurkeztu zuen, DDRra itzul zezaten **eragozteko** eta han zituen ahaideak babesteko. Berria - Kultura

Posible da, neurri egokiak hartuz, diabetes bat ager dadin galaraztea edo, hesteetako infekzioak saihestuz, erreumatismo bat goizegi edo bortitzegi finka dadin **eragoztea**. Juan Garzia

2 (zer osagaia aditz izen bat denean)

Urduritasunak sabelean egiten didan korapiloak jatea **eragozten** didalako. Ramon Saizarbitoria

Abelek atea ireki du, eta, oraingoan, ez dio inork **eragotzi** autotik irtetea. Pello Lizarralde

Naturako lege txit iraunkor eta soilek planetak beren mugimenduetan desbideratzea **eragotzi** ezin duten bezala. Juan Martin Elexpuru

Hango bizilagunek, ordea, **eragotzi** egin zieten igarotzea eta harriz itxi zituzten sarrerak. Elizen arteko biblia

Higiezinen eta burtsaren krax bikoitzak bankuen suspertzea **eragotzi** zuten. Koro Navarro

Ez zegoen oztoporik -oihana eta izotza izan ezik, kosako nomada borrokalarien ohiko aliatuak- errusiar Kristandade Ortodoxoaren aitzindari haiei Uralak igarotzea **eragozteko**. Iñaki Mendiguren

«Kaleratzeak **eragozteko**» langileen eskaera «neurrizkoa» dela nabarmendu du Jon Apaolazak. Berria - Ekonomia

Mendeku horrek Norarekin gauzak konpontzea **eragotziko** zidala pentsatu nuen. Mikel Hernandez Abaitua

Zerk **eragotzi** behar dit horrela pentsatzea? Josu Zabaleta

Ezerk eta inork ez dit **eragotziko** 2007ko hitzordura joatea. Berria - Harian

Hemendik nola **eragotzi**, ordea, han oihana ez erretzea? Jon Muñoz

Gripe gogor batek **eragotzi** dit lehenago idaztea. Josu Zabaleta

Porrot egiteko ikarak **eragotzi** egiten zidan idaztea. Ramon Saizarbitoria

Ezin didazu **eragotzi** gora joatea, onean behintzat. Josu Zabaleta

Bedeinkatua zure zuhurtzia, bedeinkatua zeu ere, **eragotzi** egin baitidazu gaur odola isurtzea eta mendekua neure eskuz egitea. Elizen arteko biblia

Eragotzi egingo dugu Zuccarelli presidente izatea. Berria - Mundua

Neure buruari **eragotzi** ahalko banio pentsatzea! Monika Etxebarria

Aitak, ordea, **eragotzi** egiten zion amarengana joatea. Xabier Montoia

Horrek ez du **eragotziko** armiarmek euliak jaten jarraitzea. Josu Zabaleta

Hark nire zerbitzuan lan egitea **eragotzi** nahi zizun. Askoren artean

Berak **eragotzi** zizun ni hiltzea. Iñaki Mendiguren

Haurraren seriotasunak **eragotzi** zidan irriz zabaltzea. Aingeru Epaltza

Espainiako Gobernuak eta PSOEk badakite Batasunari prozesuan normaltasunez parte hartzea ez **eragoztea** ezinbestekoa dela. Berria - Harian

Hiesaren birusa erreplikatzea **eragozten** dute estatinek. Berria - Gaiak

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Eta saiatu ere egingo nintzen zalantza barik, Bandi Citromek etengabe **eragotzi** izan ez balit. Urtzi Urrutikoetxea

Israelgo Armadak maiz atzeratu edo erabat **eragotzi** du salbamendu zein mediku taldeak zaurituengana eta hainbat egun elikagairik eta urik gabe beren etxeetan harrapatuta zeuden zibilengana iristea. Berria - Mundua

Nahiz eta ezin izaten zuen honelakoetan tristura erabat **eragotzi**. Askoren artean

Nahiago dugu pentsatzea hori izango dela bidea, eta ez Euskal Legebiltzarrak erabaki dezakeen estatutu proposamen bat indarrez **eragoztea**. Berria - Euskal Herria

Orain osagaiok elkarren artean nola nahasten, nola ordenatzen diren eta nola diharduten gogoz arrazoitzea desgogoz **eragozten** dit aberri hizkuntzaren gabeziak. Xabier Amuriza

Maitasunak ez diela inoiz **eragozten** gizakiei beren Norberaren Kondaira jarraitzea. Xabier Aranburu

Haien bidez **eragozten** zitzaion bakterioa inbaditu eta han sustraitzea. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eragotz dakiguke (3); **eragotz dezake** (3); **eragotz dezakeela** (3); **eragotz diezaioke** (3); **ezin eragotz** (3); **ulertzea eragotz** (3)

akordioa eragotzi (3); **aurrera egitea eragotzi** (3); **baina eragotzi** (3); **baina eragotzi egin** (3); **bakarrik eragotzi** (4); **bat egitea eragotzi** (3); **bat eragotzi** (7); **batek eragotzi** (8); **buruari eragotzi** (4); **du eragotzi** (13); **egitea eragotzi** (23); **egitea eragotzi nahi** (5); **egotea eragotzi** (3); **ematea eragotzi** (3); **erabat eragotzi** (4); **erabiltzea eragotzi** (4); **eragotzi ahal** (12); **eragotzi ahal izan** (3); **eragotzi ahal izango** (3); **eragotzi ahal izateko** (4); **eragotzi behar** (23); **eragotzi behar dela** (5); **eragotzi beharko** (3); **eragotzi beharra** (4); **eragotzi dio** (3); **eragotzi diote** (3); **eragotzi du** (11); **eragotzi duela** (3); **eragotzi dute** (11); **eragotzi dutela** (6); **eragotzi duten** (4); **eragotzi egin** (43); **eragotzi egin behar** (6); **eragotzi egin nahi** (5); **eragotzi egin zidan** (4); **eragotzi egin zien** (4); **eragotzi egin zion** (3); **eragotzi egin zuen** (4); **eragotzi egingo** (13); **eragotzi egiten** (22); **eragotzi egiten du** (5); **eragotzi eta** (14); **eragotzi ez** (15); **eragotzi ez zuten** (3); **eragotzi gabe** (5); **eragotzi izan** (5); **eragotzi izana** (4); **eragotzi nahi** (62); **eragotzi nahi du** (11); **eragotzi nahi dute** (11); **eragotzi nahi izan** (6); **eragotzi nahian** (5); **eragotzi nahiko** (4); **eragotzi nahiko lukeena** (3); **eragotzi zidan** (10); **eragotzi zien** (3); **eragotzi zieten** (5); **eragotzi zion** (22); **eragotzi zioten** (6); **eragotzi zituen** (3); **eragotzi zuela** (5); **eragotzi zuen** (29); **eragotzi zutela** (5); **eragotzi zuten** (11); **eramatea eragotzi** (3); **erasoa eragotzi** (3); **ere eragotzi** (4); **ertzaintzak eragotzi** (3); **eta eragotzi** (8); **eta eragotzi egin** (3); **eta ez eragotzi** (3); **ez du eragotzi** (9); **ez eragotzi** (7); **ez zion eragotzi** (3); **ez zuen eragotzi** (9); **ezin du eragotzi** (3); **ezin eragotzi** (8); **ezin nuen eragotzi** (3); **eztabaida eragotzi** (3); **garapena eragotzi** (3); **hartzea eragotzi** (7); **hartzea eragotzi nahi** (4); **hori eragotzi** (9); **horrek eragotzi** (8); **inork eragotzi** (4); **izan zuen eragotzi** (4); **izatea eragotzi** (5); **joatea eragotzi** (3); **kontrabandoa eragotzi** (3); **lan egitea eragotzi** (3); **loa eragotzi** (4); **lortzea eragotzi** (5); **neure buruari eragotzi** (3); **nola eragotzi** (7); **nuen eragotzi** (6); **ona eragotzi** (3); **ona eragotzi nahiko** (3); **onartzea eragotzi** (3); **ordenaren ona eragotzi** (3); **sartzea eragotzi** (7); **zabaltzea eragotzi** (3); **zion eragotzi** (3); **zuen eragotzi** (14)

batek eragotziko (5); **dit eragotziko** (4); **du eragotziko** (8); **eragotziko dio** (3); **eragotziko du** (6); **eragotziko duela** (4); **eragotziko duen** (5); **eragotziko duten** (3); **eragotziko ez** (3); **eragotziko ote** (3); **eragotzita dago** (3); **ere eragotziko** (4); **ez dit eragotziko** (4); **ez du eragotziko** (8); **ezin eragotziko** (3); **hartzea eragotziko** (4); **izatea eragotziko** (3); **prozesua eragotziko** (3); **zion eragotziko** (3)

atentatuak eragozteko (3); **bat eragozteko** (11); **egitea eragozteko** (8); **ekitaldia eragozteko** (3); **eragoztea da** (15); **eragoztea dela** (4); **eragoztea eta** (4); **eragoztea izan** (3); **eragoztea leporatu** (3); **eragoztea zela** (5); **eragoztea zen** (3); **eragozteaz gain** (3); **eragozteko ahaleginak** (3); **eragozteko asmoz** (6); **eragozteko aukera** (3); **eragozteko eskatu** (7); **eragozteko eskatu zion** (3); **eragozteko eta** (6); **eragozteko ez** (7); **eragozteko gai** (4); **eragozteko gai ez** (3); **eragozteko neurriak** (12); **eragozteko neurriak hartu** (4); **eragozteko neurririk** (3); **erasoak eragozteko** (8); **eta eragozteko** (3); **ez eragoztea** (11); **ez eragozteagatik** (4); **ez eragozteko** (7); **eztabaida eragoztea** (3); **gaitza zabaltzea eragozteko** (7); **hartzea eragozteko** (7); **hau eragozteko** (3); **hauek eragozteko** (3); **haurdunaldia eragozteko** (4); **hondamendia eragozteko** (3); **hori eragoztea** (3); **hori eragozteko** (17); **hura eragozteko** (6); **istripuak eragozteko** (5); **isuria eragoztea** (4); **isuria eragoztea da** (3); **izatea eragoztea** (4); **izatea eragoztea da** (3); **izatea eragozteko** (4); **mehatxuak eragozteko** (3); **mehatxuak eragozteko eskatu** (3); **odol isuria eragoztea** (4); **parte hartzea eragozteko** (5); **sarraskia eragozteko** (4); **sartzea eragozteko** (3); **tortura eragozteko** (6); **zabaltzea eragozteko** (16)

aurrera egitea eragozten (5); **aztertzea eragozten** (3); **bat eragozten** (4); **batek eragozten** (6); **bidea eragozten** (7); **dio eragozten** (5); **du eragozten** (8); **edo eragozten** (10); **egitea eragozten** (24); **egitea eragozten du** (4); **egotea eragozten** (4); **erabiltzea eragozten** (4); **eragozten ari** (12); **eragozten badu** (3); **eragozten baitute** (6); **eragozten bere** (3); **eragozten delako** (3); **eragozten die** (3); **eragozten dien** (4); **eragozten diete** (4); **eragozten digu** (4); **eragozten digun** (5); **eragozten dio** (8); **eragozten dion** (6); **eragozten dioten** (5); **eragozten dit** (3); **eragozten ditu** (3); **eragozten dizu** (4); **eragozten du** (24); **eragozten duela** (8); **eragozten duelako** (3); **eragozten duen** (15); **eragozten duena** (6); **eragozten duenean** (3); **eragozten dute** (16); **eragozten dutela** (3); **eragozten duten** (17); **eragozten dutenak** (3); **eragozten eta** (4); **eragozten ez** (21); **eragozten ez badu** (3); **eragozten ez duen** (4); **eragozten jakin** (3); **eragozten saiatu** (10); **eragozten saiatu zen** (3); **eragozten saiatzen** (6); **eragozten zidan** (6); **eragozten zien** (5); **eragozten zion** (12); **eragozten zuen** (7); **eragozten zuten** (11); **ere eragozten** (4); **eta eragozten** (4); **ez dio eragozten** (5); **ez du eragozten** (8); **ez zion eragozten** (3); **hartzea eragozten** (6); **haztea eragozten** (4); **hori egitea eragozten** (3); **hori eragozten** (10); **horrek eragozten** (4); **hurbiltzea eragozten** (3); **izatea eragozten** (7); **joatea eragozten** (5); **laguntzen edo eragozten** (4); **sartzea eragozten** (5); **tipitzen edo eragozten** (4); **zabaltzea eragozten** (3); **zerk eragozten** (5); **zion eragozten** (4)

---

eragozgaitz *izond* eragozten zaila, ia ezin eragotzizkoa.

Nire erabaki **eragozgaitzak** itxaron zezakeen. Juan Garzia

---

eragozgarri **1** *iz* eragozpena.

Ez ahal duzu orain batere **eragozgarririk** izanen zeure hitza betetzeko! Jon Muñoz

Goietan izarren argiak ageri ziren, hodeien **eragozgarririk** gabe. Karlos Zabala

Eskuak ere izerditan eta hotz, eta alkandora hotz bustia gorputzari itsatsirik, mugimenduen **eragozgarri**. Jose Morales

2 (izenondo gisa) ik **eragozle**.

Zaila da asmatzea zer gerta daitekeen; gutxienez gobernu frantziarraren jarrera **eragozgarri** bat izan daiteke; nolanahi ere, ohartu egin behar da Korsikako herriaren borroka ez dela horren aspaldikoa. Xalotasun honek Logikari ondorio **eragozgarriak** ekarri dizkiola kontuan hartu gabe. Egia esan, Gladstonek 1881ean "zibilizazioaren baliabideak" deiturikoak ia lagungarri bezain **eragozgarriak** izan zitezkeen honelako gerra batean. Berria - Mundua

Baina hain **eragozgarri** zitzaidan haren barrea, non hitzik esateko ere ez bainintzen gauza. Joxe Austin Arrieta

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Irakurketa konpultsiboak, hausnartzaileak, zerbitzuzkoak, plazer hutsekoak, buru **eragozgarriak**, autoestimuaren gizengarriak, modaren agindura burutuak, urari goiti landuak, loguraren kontra eginak. Anjel Lertxundi

Ibairik ez, bide **eragozgarri**. Karlos Zabala

---

eragozgarriro *(corpusean **eragozkarriro** soilik) adlag* era eragozgarrian.

Erregistraturiko zibilizazioen kopurua, bi dozena baino gutxiago, **eragozkarriro** txikia da orokortzeak egin ahal izateko; eta horietako batzuez dugun ezaguera oso zatikatua da. Iñaki Mendiguren

---

eragozkarri ik **eragozgarri**.

---

eragozkarriro ik **eragozgarriro**.

---

eragozle **1** *izond/iz* eragozten duena, eragozpenak jartzen dituena. ik **eragozgarri 2**.

Sakelako telefonoak kendu dizkigute, neurri **eragozle** gisa, han nork agintzen duen erakusteko. Karlos Linazasoro

Eta hona zein omen diren gure iritziaren galdez dauden dudazko puntu **eragozle** horiek: [...]. Piarres Xarriton

Aurreneko motibazioa, dudarik gabe, merkatuetarako bidea zabaltzea da; kasu horretan nazioarteko zuzeneko inbertsioa baliagarria da garraio-kostu **eragozleak** ezabatzeko, edota herrialde batzuetako protekzionismoa gainditzeko. Koro Navarro

Kausa, etiologia -sakon-usteko greko txepelen batek asmatu zuena- beti edo gehienean da kausa **eragozlea**, zapuztailea, galarazlea eta ixilarazlea, hitzaren eta arrazoiketa garbiaren etsaia. Iñaki Segurola

Hasieran, partaide izan nintzen ni lan horretan, noiz eta agertu baitzen kiribil erregulatzaileetako proteinek, **eragozle** zein aktibatzaile izan, tasun alosterikoak zituztela. Juan Garzia

Sustraiak, berrikuntzen **eragozle**. Edorta Agirre

Laktosa sistemaren **eragozlea** bakartzea erdietsi baitzuten. Juan Garzia

Aliterazioa azken muturreraino eramaten bada, soinu hoskidetasunaren goxoa galdu eta hizketarako **eragozle** bihurtzen da. Iñaki Arranz

• **2** *iz* kontzientzia-eragozlea.

Baina **eragozle** batentzat Israelgo Armadari uko egitea zer da: kasu guztietan uko egitea ala lurralde okupatuetan esku hartzen denean bakarrik ezetz esatea? Berria - Mundua

Israel sortu zen garaian eta 1948an palestinarrak erbesteratu zituzten garaian izan ziren **eragozleak**. Berria - Mundua

Egun, 45 urteko **eragozleak** aurki ditzakegu, Lehenengo Intifadan parte hartu zutenak baina garai hartan **eragozle** izateko erabakia hartzeko adorea izan ez zutenak. Berria - Mundua

Gadi algazi, israelgo armadako aurreneko **eragozlea**. Berria - Mundua

Eragozleen mugimenduan armada kolonial batean sartu nahi ez duten gazteak edo palestinarren herriak bonbardatzeari uko egiten dioten eliteko pilotuak daude. Berria - Mundua

3 irud/hed

Laurak **eragozle** fiskalak dira, eta laurek agerraldia egin zuten atzo Bilbon. Berria - Euskal Herria

KEM eta Kakitzat talde antimilitaristek, Hirugarren Mundua eta Bakea eta Mugarik Gabe elkarteek, SOS Arrazakeriak, EHNEk, Sumendik, Itakak eta Emakumeen Asanbladakoek egin dute bat, besteak beste, **eragozle** fiskalen asmoekin. Berria - Euskal Herria

4 ***kontzientzia-eragozle*** *iz* kontzientzia arrazoiengatik soldadutzari uko egiten dion pertsona.

Hiru urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio Greziako epaitegi batek Giorgos Monastiriotis 24 urteko **kontzientzia-eragozleari,** Irakera joan nahi ez izateagatik. Berria - Mundua

Aleman anitz, Holandesak, **kontzientzia eragozleak** edo Jehovah-ren lekukoak egun oroko Bibliaren irakurtzeari jarraikiak ziren. Marzel Etxehandi

Mota askotako **kontzientzia eragozleak** daude, baina mugimenduak denak onartzen ditu. Berria - Mundua

Nafarroako ginekologoak **kontzientzia eragozleak** direla dio kontseilariak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
kontzientzia eragozleak (6)

---

eragozpen *(**1.798** agerraldi, **174** liburu eta **739** artikulutan; ETCn **18.026** agerraldi) iz* **1** zerbait eragozten duen gauza. ik **eragozgarri; eragozpide**.

Barkatu **eragozpenak**, baina ikerketa batean lanean nabil. Harkaitz Cano

Urre-urritasuna **eragozpena** baitzen merkatarientzat. Koro Navarro

Arriskuak eta **eragozpenak**. Elizen arteko biblia

Estatu mota ezberdinak bereizten ditut: monarkia, aristokrazia, demokrazia, aginte aitatiar eta despotikoa; nola ezartzen diren erakusten dut eta euren arteko abantailak eta **eragozpenak** alderatzen ditut. Esteban Antxustegi

Zalantza handiak daude oraindik [zelula amek] eragin ditzakeen arazo eta **eragozpenen** inguruan. Berria - Gaiak

Grebak **eragozpenak** sortu zizkien hiri garraioaren erabiltzaileei. Berria - Ekonomia

Ikertzaileen zereginari oztopoak eta **eragozpenak** jartzen dizkiogu. Berria - Gaiak

Ez zuen haatik ohi duen bezala gogo onez nirekin kantatzeko **eragozpenik** izan. Jon Muñoz

Horrela, ez duzue **eragozpenik** izango elkarrekin otoitz egiteko. Elizen arteko biblia

Alberti bera zen testuaren hutsuneak eta praktikan erabiltzeko zituen **eragozpenak** azpimarratzen zituen lehenengoa. Santiago Iruretagoiena

Txapelketa atzeratzeak **eragozpen** ugari ekarriko zituela. Berria - Kirola

Eragozpen bat bazuten, noski, ezin zirela inora beren kasa joan. Iñaki Mendiguren

Animaliek (gizakia barne) **eragozpen** bat dute: ezin dute eguzkiaren argitik zuzenean atera beste energia edo materia mota erabilgarriago bat. Irene Aldasoro

-Ondo da, ez dut **eragozpenik**. Koro Navarro

Errefuxiatu politikoa zarela ziurtatzeko, adibidez, ez dago **eragozpenik**; nahikoa dute Frantziako poliziaren artxibategian galdetzea. Rafa Egiguren

Guk marinelok batetik eta artilleriakoek bestetik elkarri oztopo eta **eragozpen** egiten baikenion. Edorta Jimenez

Habana Zaharreko bihotzean, **eraikin** ederra da Apezkiku Katolikoaren etxea. Edorta Jimenez

Eraikin erosoa izango da, baina, aldi berean, zirraragarria. Berria - Kultura

Eraikin gris ilunetako labirinto amaigabea dirudi. Berria - Harian

Ezin daiteke sar gaur etxe pribatua den eta zakurrek zaintzen duten **eraikin** gotikoan. Piarres Aintziart

Hau idazten ari garela izan dugu aukera ikusteko EHUren liburutegiaren **eraikin** berria Gasteizen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Duela lau urte berritua den **eraikin** gotiko hau xirristaren freskurari dagokio. Piarres Aintziart

Adreilu gorrizko **eraikin** eklektiko bat da, arkitekto ingeles batek diseinatua. Xabier Olarra

Kale zabalak, parkeak, **eraikin** arrazionalak eta, han-hemenka, oraintsu eraikitako beste batzuk. Edorta Jimenez

Hemezortzigarren mendeko **eraikin** apal ederrak, europar zibilizazio kosmopolitaren distiraz iparraldeko gau zurian. Xabier Olarra

Karrikaren sakonenean, bi **eraikin** bikien leihoak itxiak ageri ziren, arratseko freskuraren babesean. Patxi Zubizarreta

Hor izango dira oraindik hiria izan zitekeenaren hezurdura idortuak, moila zurkaiztua, burdinazko eta harrizko **eraikin** hondatuak, bagoneta eskoratuak. Joseba Sarrionandia

Solairu bakarreko **eraikin** hondatu hurren haren aurreko horman. Oskar Arana

Burua itzuli gabe urrundu da **eraikin** arraildutik. Aingeru Epaltza

Etxetto zapal goibel hura egoniko lekuan egurrezko habe eta adreilu pila itxuragabea agertu omen zen, inguruko **eraikin** porrokatuetatik nekez bereizten zena. Alberto Ladron Arana

Erdi eroritako eta bukatu gabeko **eraikin** hutsak eraisten. Berria - Mundua

Eliza, xarma gabeko barroko antzeko estiloko betoizko **eraikina** zen. Ramuntxo Etxeberri

Gune alai eta biziak, eliza, erromatar **eraikin**, terma, bainuetxe eta Avon ibaiaren inguruan biltzen dira geghienbat. Berria - Kirola

Gotiko, barroko eta berpizkundeko **eraikinak** ondare unibertsal izendatu zuen UNESCOk 1994an. Berria - Mundua

Baduke bertzerik ere alta Durango hiri industrialak, bereziki bere Erdi-Aroko **eraikinak**: Uribarriko Andra Mari eliza, San Agustin komentua, Krutziagako kurutze famatua... Herria

Hiri ezezagun bat, zurezko kupula zaharrekiko eta erpin belztuekiko elizak, enborrezko etxe ilunak eta harrizko **eraikin** zuriak. Kartoizko **eraikinen** gainean, zeruak berun irabiatuzko ganga bat irudikatzen zuen. Jose Morales

Bakailaoa manufakturatzeko **eraikina** zen Ziriza. Berria - Kultura

Baita kaltetutako **eraikinak** konpondu eta hondakinak ateratzen ere. Berria - Harian

Gaur egungo atziloketa kopuruari eusteko, behin-behineko **eraikin** bat baliatuko du Administrazioak. Berria - Euskal Herria

Jatorrizko **eraikinaren** bila, adabakiak kenduz. Berria - Harian

Atzeko Etxea ez dela sail honetakoa, aldameneko **eraikinarena** baizik. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kaleak hondamen itxura zuen, denetan auto xehatuak, **eraikin** puskakinak, hildako kiskalituak eta gorpu zatiak sakabanatuta zeudela. Berria - Mundua

Eraikin sail bat ematen du hor Francok, haren ikuspegitik batasun estetiko bat osatzen duena. Xabier Olarra

Ibiliaren ibiliaz, espaloi berrien eremu batera heldu zen, adreilu horizko **eraikin**-ilara baten parera. Lopez de Arana

Ezker-eskuin dituen bi **eraikin**-lerrokadak. Jon Alonso

Industrialdeko **eraikin**-multzoaren atzeko aldean. Jon Alonso

Hegoaldera, **eraikin**-multzo bat zegoen, hiri baten antzekoa. Elizen arteko biblia

Eraikin-multzoak bi liburutegi zeuzkan. Jon Muñoz

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oklahoma hiriko Alfred P Murrah gobernu-**eraikina** bonbaz suntsitu zuen atentatuan. Berria - Mundua

Grebari ekin zioten Basauriko udal **eraikinak** garbitzen diharduten FCCko 60 langileek. Berria - Ekonomia

Beste batzuk ibaiaren ekialdeko ertzean defentsa-**eraikinak** presaka eraikitzen. Agustin Otsoa

Bizikletaz pixkanaka denen artetik pasatu eta kontrol-**eraikinera** hurreratu naiz. Jon Arretxe

Da Ruak bazekien merkataritzak -eta batez ere Itsas Beltzeko kolonietatik ekarritako esklaboen sal-erosketak- egin zuela libre eta aberats Venezia; batzuen behin betirako askatasun ezak eman ziola hiriari bere karrika-**eraikinak** edertzeko eta artea lantzeko dirutza. Felipe Juaristi

Davidek hilabeteak bila eman ostean aurkitu zuen lanik onena Market kaleko bulego-**eraikin** batean gauez zaindari aritzea izan zen. Oskar Arana

Mulhousen, Frantziako ipar-ekialdean, apartamentu-**eraikin** batean gertatutako gas isuri baten ondorioz. Berria - Mundua

Antzinako loria nola, halatsu amaitzen zen kalezuloa ere, bat-batean, hiruna solairurekiko bi albo **eraikinetan**. Patxi Zubizarreta

5 irud/hed

Ezagutzaren **eraikina** altxatu nahian, sustraiak garbi-garbi gura zituen, inolako kutsu aristoteliko edo sen onaren kutsadurarik gabe. Askoren artean

Pedagogoen mugimendua da XVIII. mendeko **eraikin** burgesaren zutabe nagusia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Errealitatea ez dago behatzez seinalatzerik, zeren errealitatea adreilu idealez jasotako **eraikin** edo asmakina baita. Ortziaren eta itsasoaren arteko harkaitz handi hartan txikiagotu ordez, **eraikin** arnasadun baten neurrikoa sentitu nuen neure burua. Iñaki Segurola

"Latindar Inperioaren" **eraikin** zaharkitua behera erori zen Konstantinoplan. Iñaki Mendiguren

Armiarma da arkitektorik jeloskorrena, euli batek bere **eraikin** kostata egindakoa zapaldu orduko, armiarmak euliarengana jotzen baitu, eta hil ondoren jan. Felipe Juaristi

Hariz eta listuz jositako **eraikina** zen, **eraikin** geometrikoa, bere txikian ezin hobea, bere edertasunean ezin berdindua, euli eta eltxoentzat, armiarma baino txikiagoak diren izakientzat, heriotza zigorra ordea. Felipe Juaristi

Egiazko apaltasunean oinarritzea merezi izan zuten, oinarri horren gainean bertute guztien espirituzko **eraikina** jasotzeko egoki prestatuta egon zitezen. Askoren artean

6 *eraikin tzar* ik **eraikintzar**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

baina eraikin (8); **basauriko eraikin** (10); **basauriko eraikin publikoetako** (5); **bat eraikin** (6); **bere eraikin** (4); **beste eraikin** (20); **beste eraikin bat** (4); **bi eraikin** (11); **da eraikin** (15); **da eraikin berria** (4); **dagoen eraikin** (6); **den eraikin** (14); **diren eraikin** (4); **dituzte eraikin** (4); **du eraikin** (9); **duen eraikin** (5); **dute eraikin** (4); **duten eraikin** (5)

eraikin asko (6); **eraikin barruan** (4); **eraikin bat** (58); **eraikin bat okupatu** (4); **eraikin batean** (31); **eraikin bateko** (6); **eraikin baten** (28); **eraikin batetik** (6); **eraikin bati** (6); **eraikin batzuk** (8); **eraikin berean** (16); **eraikin berean bizi** (5); **eraikin berri** (15); **eraikin berri bat** (4); **eraikin berria** (34); **eraikin berriak** (19); **eraikin berrian** (7); **eraikin berriarekin** (4); **eraikin berriaren** (6); **eraikin edo** (4); **eraikin erraldoi** (5); **eraikin erraldoia** (5); **eraikin eta** (21); **eraikin gehienak** (4); **eraikin guztia** (6); **eraikin guztiak** (9); **eraikin handi** (11); **eraikin handi bat** (5); **eraikin handiak** (8); **eraikin hartan** (5); **eraikin hau** (10); **eraikin honetan** (6); **eraikin hori** (12); **eraikin horiek** (7); **eraikin horren** (7); **eraikin horretan** (9); **eraikin hura** (5); **eraikin mota** (4); **eraikin multzo** (5); **eraikin ofizialetan** (4); **eraikin osoa** (15); **eraikin osoan** (5); **eraikin osoaren** (5); **eraikin pribatuen** (4); **eraikin publiko** (10); **eraikin publikoak** (20); **eraikin publikoak garbitzen** (5); **eraikin publikoen** (7); **eraikin publikoetako** (9); **eraikin publikoetan** (6); **eraikin suntsitu** (4); **eraikin txiki** (6); **eraikin zahar** (7); **eraikin zaharra** (4)

eta eraikin (59); **etxe eta eraikin** (4); **ez eraikin** (8); **hainbat eraikin** (13); **harrizko eraikin** (5); **hiriko eraikin** (6); **hiru eraikin** (5); **inguruko eraikin** (6); **solairuko eraikin** (6); **zegoen eraikin** (9); **zegoen eraikin bat** (4); **zen eraikin** (5); **zenbait eraikin** (6); **zeuden eraikin** (4); **ziren eraikin** (5); **zituen eraikin** (6); **zituzten eraikin** (4); **zuen eraikin** (10); **zuten eraikin** (8)

baina eraikina (4); **bere eraikina** (4); **dago eraikina** (4); **dira eraikinak** (4); **du eraikina** (5); **duen eraikina** (7); **duen eraikinak** (4); **dute eraikina** (5); **eraikina bera** (6); **eraikina botatzeko** (7); **eraikina egitea** (4); **eraikina egiteko** (7); **eraikina erabat** (5); **eraikina eraisteko** (4); **eraikina eraisten** (4); **eraikina eta** (9); **eraikina ez** (8); **eraikina husteko** (5); **eraikina hustu** (6); **eraikina ikusi** (4); **eraikina izan** (4); **eraikina osorik** (5); **eraikina zaharberritzeko** (5); **eraikina zen** (6); **eraikinak egiteko** (9); **eraikinak ere** (6); **eraikinak eta** (8); **eraikinak ez** (7); **eraikinak garbitzen** (4); **eta eraikina** (24); **eta eraikinak** (16); **handiko eraikina** (4); **udal eraikinak** (5); **udal eraikinak garbitzen** (4); **udalak eraikina** (4); **zen eraikina** (6); **zuen eraikina** (5); **zuten eraikina** (6)

baina eraikinaren (5); **eraikinaren aurrean** (10); **eraikinaren aurreko** (7); **eraikinaren barruan** (8); **eraikinaren egitura** (6); **eraikinaren egoera** (5); **eraikinaren jabe** (4); **eraikinaren jabe den** (4); **eraikinaren kanpoaldean** (4); **eraikinaren kanpoko** (5); **eraikinaren kontra** (4); **eraikinaren ondoan** (4); **eraikinari buruz** (4); **eta eraikinaren** (24); **mundu eraikinaren** (4); **ziren eraikinaren** (4); **zuen eraikinaren** (5)

basauriko udal eraikinetako (13); **bi eraikinen** (4); **dagoen eraikinean** (4); **duen eraikinean** (4); **eraikinean bertan** (6); **eraikinean sartu** (4); **eraikineko lehen** (4); **eraikinen artean** (5); **eraikinen arteko** (6); **eraikinera sartzen** (4); **eraikinetako garbitzaileek** (6); **eraikinetan ez** (4); **eta eraikinei** (4); **eta eraikinen** (11); **udal eraikinetako** (17); **udal eraikinetako garbitzaileek** (6); **udal eraikinetan** (5); **zuten eraikinean** (5)

---

eraikintzar *(orobat **eraikin tzar**) iz adkor* eraikin handia.

Etorkizunean Bilbok erakutsiko duen postala eraiki nahi dugu, gaurko futbol zelaiak ez baitira porlanezko **eraikintzarrak**, arte lanak baizik. Berria - Kirola

Gerra ostean, atzera egin behar izan zuten Minsk hiria eta, harrezkero, bestelako itxura du: etorbide zabalak, **eraikintzarrak**, zubi ikusgarriak. Berria - Kultura

Hogei urte zeramatzaat egunero-egunero **eraikin tzar** hori ikusten, hogei urte zehaztu nahian zergatik ez zaidan gustatzen. Anjel Lertxundi

Eraikin tzar handi baten aurrera iritsi ginen. Anjel Lertxundi

---

eraikitzaile *(orobat **eraikitzale** g.er.)* **1** *izond* eraikitzen duena.

Horren guztiaren atzean lurren gaineko interesak eta enpresa **eraikitzaileen** kontratuak daude. Edurne Elizondo

Hirigintzari buruzko foroa Eusko Jaurlaritza eta enpresa **eraikitzaileen** arteko eztabaida gune bihurtu da, Lurzoruen Legea hizpide. Berria - Euskal Herria

Iragan larunbatean, berrehun bat lagun bildu da Ainhiza Monjolosen, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen Adiskideen biltzar **eraikitzailean**. Herria

Jende hau guzia Ainhizeko Zuentzat egoitzara hurbildua zelarik, anartean Laborantza Ganbararen sortzaileek Biltzar Nagusi **Eraikitzailea** zuten, 9etatik 11etara. Herria

Pizkunde **eraikitzaile** hori, heriotza gainditu dezakeena eta hizkuntza zeresan gabe utzi, Gertakari subjektibo hutsa da, jakina, ez frogatu edo faltsutu daiteken gauza bat. Joseba Zulaika

Ondasun materialei lehentasuna eman beharrean egitasmo **eraikitzaile** kolektiboari ematea. Txema Ramirez de la Piscina

Yolanda Arrieta bitalista, **eraikitzailea** eta hausnarkaria da, sortzaile sakona. Ana Urkiza

Inkontzienteki eta ilunki bazen ere, amodioaren indar sortzaile eta **eraikitzailea** sentitu zituen. Patxi Zubizarreta

Gauza bat da zientziaren gabezia, muga eta arriskuen berri ematea (analisiaren osagai deuseztatzailea litzatekeena); eta beste bat, arras zailagoa, parte-hartze publikorako ereduak proposatzea eta horiek modu eraginkorragoan indarrean jartzea (analisiaren alderdi **eraikitzailea** litzateke). Askoren artean

Aldi berean, ordea, hitz **eraikitzaileak** nahiko zituen, noski: Ignazioarekiko maitasunez edo halako atxikimenduz idatziak, behintzat. Patxi Altuna

Uztailaren-23an,-ortziralez: Goizeko 10etan, Elizaldian solasaldi: "Bakearen **eraikitzaleak"**. Herria

2 irud/hed

Estatutu Proposamenak irekitako eztabaidan «era positibo eta **eraikitzailean**» ekarpena egiteko borondatea adierazten du. Berria - Ekonomia

EB-Berdeetako koordinatzaile Javier Madrazok esan zuen Madrilgo bilerara «jarrera **eraikitzailea**» erakusteko asmoz joan zela eta bere alderdikideen aurrean «euskal gizarteak bere etorkizuna libreki erabakitzeko duen eskubidea» aldarrikatu zuela. Berria - Harian

EA ere abstenitu eginen dela aurreratu zuen Lasagabasterrek, baina «abstentzio **eraikitzailea**» izanen dela azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzako Estatutu Proposamenari «arbuio **eraikitzailea**» adieraztea proposatzen zuen zuzenketa ez zuten onartu, eta txostengileek proposatutako testuak egin zuen aurrera azkenean, baina titulu esanguratsua kenduta: Babes **eraikitzailea**. Berria - Euskal Herria

Bere esaldi kritiko eta **eraikitzailearekin** ados nago. Berria - Euskal Herria

Orain arte Esloveniako lehen ministro izan den Anton Ropek «oposizio **eraikitzailea**» egingo duela adierazi du. Berria - Mundua

Presidenteak ikerlarien proposamenak **«eraikitzaileak»** direla esan eta «hausnartu eta ikertu» egingo dituela adierazi zuen Etxe Zurian. Berria - Mundua

Ildo **eraikitzaile** horri babesa emateko eskatzen diogu jendeari, hortik datozelako irtenbideak. Berria - Euskal Herria

Palestinako agintariek beren jarrera zein den agerian uzteko aukera izango dute orain, palestinarrei, nazioarteari eta israeldarrei bide **eraikitzailea** egiteko borondatea dutela erakutsi beharko diete. Berria - Harian

Zainduko dugula, eta hala badagokio fede emango, parte hartzen ari diren eragile guztiek xede duten Oinarrizko Akordio Demokratikoa iristeko prozesua elkarrizketa **eraikitzailez** egin dadin. Berria - Harian

AEBetako segurtasun egiturak erreformatzeko eskaera egiten duen txostena «oso **eraikitzailea**» dela iruditu zaio George Bush presidenteak. Berria - Mundua

3 (izen gisa)

Kontratisten eta **Eraikitzaileen** Elkarteak lan-itxiera erabakiko du astelehenetik aurrera. Lopez de Arana

Batzordean eragile pribatuak eta publikoak zeuden: sustatzaileek, higiezinen agentziek eta **eraikitzaileek** %60 zuten, eta Gasteizko Udalak, %40. Berria - Kultura

Millauko zubiaren **eraikitzaileek** 120 urteko bermea eman dute. Berria - Gaiak

Abrahamen deia, adibidez, hebrear kondairan beren buruaz ziur zeuden Babel dorrearen **eraikitzaileek** Jainkoari botatako erronkaren ondorio gisa agertzen da. Iñaki Mendiguren

Ni produktorerik handiena, **eraikitzaile** ikustezina, ulertzen duzu? Lopez de Arana

Filologo edo hitz-maite ona, izan ere, fidakaitz eta sinesgogor amorratua baita dotrinanteekiko, fedekalte eta fedegalgarria [...], izpiritu xano sineskorren, ideien **eraikitzaile** gezur-merkeen eta "bizitzen laguntzen duten" gezur polit kontsolagarrien etsai txarrena. Iñaki Segurola

Antzinako **eraikitzaileek** ez zituzten ez onartu eta ez erabili modiloiak edo dentikuluak frontoietan, baizik eta erlaitzak bakar-bakarrik. Santiago Iruretagoiena

Sarriegi da, dudarik gabe, Donostiako hiriaren irudikapenik biziena herri memorian sustatu duen musikagilea, eta era berean da memoria kolektiboan finkatuena dagoen erreferente emozional eta sentimenduzkoaren **eraikitzailea**. Askoren artean

Eremuaren %80 **eraikitzaile** pribatuen esku uzteko asmoa du PPk. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zer, izan ere, gaur hiri-eskubide gabe uzte hori baino hoberik, bihar nonbait hiri **eraikitzaile** itsu bihurtzeko. Patziku Perurena

Niri etxe **eraikitzaileek** askotan esaten didate «bai, paperean oso polita da hori, baina gero egin egin behar da!». Berria - Kultura

Yaguek Copasur izeneko auziagatik deklaratu zuen, etxe **eraikitzaile** batek haren etxean eginiko obrengatik ia milioi bat euro eskatzen baitizkio alkateari. Berria - Mundua

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Baldintzetan oinarrituta, abuztuan bertan etxe-**eraikitzaile** talde bat harremanetan jarri zen Gendulaingo eremuaren jabeekin. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biltzar nagusi eraikitzailea (3); **egile eta eraikitzaileak** (3); **elkarrizketa eraikitzailea** (3); **enpresa eraikitzaileen** (3); **eraikitzaile eta** (9); **eraikitzaile eta sustatzaileen** (4); **eraikitzailea egingo** (4); **eraikitzailea egingo diogu** (3); **eraikitzailea eta** (3); **eraikitzaileen eta** (3); **eta eraikitzaile** (4); **eta eraikitzailea** (4); **eta eraikitzaileak** (4); **eta eraikitzailean** (3); **eta eraikitzaileek** (3); **eta eraikitzaileen** (4); **jarrera eraikitzailea** (6); **kritika eraikitzailea** (5); **kritika eraikitzailea egingo** (3); **nagusi eraikitzailea** (3)

---

eraikitzale ik **eraikitzaile**.

---

eraikitze **1** *iz* hainbat ekai elkartuz, lurrean jasotzea.

Ez zen gehiago erruki eta lagun-aurpegi amultsu eske ibiltze bat, baizik eta **eraikitze** argi bat. Juan Garzia

Teknologia sozialki eraikia da, eta **eraikitze**-prozesu horretan aktore sozial desberdinek (interes eta ardura desberdinekin) hartzen dute parte. Askoren artean

Usaian egiten denaren arabera, subasta edo norgehiagoka idekitzen ahal da Luzaideko Herriko Etxean bide **eraikitze** horri lotu nahi luketenen artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

San Bonabenturarekin, Erdi Aroko biografiak bukatzen dira (biografia, santuaren bizitzaren **eraikitze**-lan organiko bezala ulertuz). Askoren artean

Egoitza **eraikitze** hauetan partikularrak dira asmatzaileak eta ez dira, entzun dugunaz, aloiamendu eta erosgailu merkeak izanen. Herria

2 eraikina.

Eraikitze berri horrek gure herria pobreago uzten badu ere, jakin ezazu herritarrak irrisku haunditan ibiltzen direla orain arte, beren bizia galtzerainokoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat eraikitzearen (5); **baten eraikitzearen** (6); **baten eraikitzearen alde** (3); **eraikitze hori** (4); **eraikitze lan** (4); **eraikitze lanak** (11); **eraikitze lanek** (4); **eraikitzearen alde** (9); **eraikitzearen aldeko** (3); **eraikitzearen aurka** (3); **eraikitzearen kontra** (7); **eta eraikitze** (4); **euskara eraikitzearen** (3); **jatorrizko euskara eraikitzearen** (3)

---

eraikitzear *adlag* eraikitzeko zorian.

Argazkiaren etxea izeneko egoitza **eraikitzear** du hiriak. Berria - Kultura

---

eraikitzeke *adlag* eraiki gabe.

Ez da metro koadro bakar bat ere **eraikitzeke** geratzen. Berria - Mundua

Banaketa hesiaren erdia **eraikitzeke** dagoen arren, jada eragin dituen ondorioak oso larriak direla salatu zuen: «Familiak bananduta daude, palestinarrak ezin dira ospitaletara eta lantokietara joan eta umeak eskolara». Berria - Mundua

---

eraikizale *izond* eraikitzeko zaletasuna duena.

Eraikizale on eta beteginena hutsetik edo hutsaren gainean eraikitzen duena da, zenbat-eta hutsagotik eraiki orduan-eta gehiago baita eraikitzen dena, eta horrela, mendizale-euskaltzaleentzat hutsaren pare dira mendia eta euskara. Iñaki Segurola

Etxe eta kale, irudi luke garapen ikaragarri azkarreko minbizi suntsitzaile bezainbat **eraikizale** batek kaotikoki ugaldutako herri murritz bat baizik ez dela hiria, etxe bakarrekoa eta kale bakarrekoa. Iñaki Segurola

Antzemanda nago gaurko euskaltzale eta mendizale **eraikizaleak** zale direla, bai, baina ez gura edo gale (amodio eraikian ere, zure zale izango naiz, txit asko nahi dizut, baina ez naiz gaurgero zure gura edo gale); haien zaletasun hori, lehen ere esana dago, esnezalearena da. Iñaki Segurola

---

eraikizun *iz* eraikina.

Konpostelako beilak bazirela-eta, **eraikizun** asko hor dira: Orreaga, Irisarrin Ospitalea, Haranbeltzeko kapera, Izurako herria bera, gure herrietan Ospitalea deitu etxeak eta beste. Herria

---

eraikuntza *(**6.561** agerraldi, **244** liburu eta **2.548** artikulutan; ETCn **93.003** agerraldi; orobat **eraikuntze** g.er.)* **1** *iz* eraikitzea.

Horri guztiari **eraikuntza** eta eraispenetan izandako hondakinak batuz gero, iaz, Bizkaian, 1.131.305 tona hiri hondakin batu ziren. Berria - Euskal Herria

Behin batean bi anaia txiki aita San Frantziskoren ohoretan eliza bat eraikitzen ari ziren Siponto elizbarrutiko Peschici herrixkan; lan eskerga hartu zuten, baina baliabideak falta zitzaizkien **eraikuntza** burutzeko. Askoren artean

Euren historia ez da harriz harri jasotako eraikin baten **eraikuntza**. Xabier Arregi

Ekonomiarako bastizen **eraikuntza** azkarki emendatu da. Herria

Salomonek tenpluaren **eraikuntza** prestatu. Elizen arteko biblia

Eraikuntza «erabat gelditu da» lehen greba egunean. Berria - Ekonomia

Ariel Sharonek berak, Yehuda Aimanrat bizi den kokagunearen **eraikuntza** bultzatu zuen. Berria - Mundua

Bi jarduera-mota baitzituen: batetik, piramideen **eraikuntza** eta bestetik metal bitxien erauzketa. Iñaki Heras

Hidraulika, kosmografia eta astrologia eta *machinatio* deitua, hau da, mekanika aplikatua eta makina zibilen nahiz militarren **eraikuntza**. Santiago Iruretagoiena

Nik neuk agindu behar izan nuen zuhaitz-mozketa, baita oholezko euskarriaren **eraikuntza** ere, autoaren azpialderaino iritsi ahal izateko. Joxe Austin Arrieta

Uraren presio-sistemak, makina automatak eta beste era askotako bitxikeriak esplikatu zituen, eta horien artean, bereziki, urezko erlojuen **eraikuntza**. Santiago Iruretagoiena

Museoek, zerurantz jasotzen diren **eraikuntzek**, zubiek, parkeek ikuskizun bikainak eta atseden toki apartak eskaintzen dituzte. Gotzon Garate

Eraikuntzaren hirugarren gorputza izan behar zuenaren harri meta. Koldo Izagirre

Seaskak du bere gain hartu ikastola berri baten **eraikuntzaren** finantzamendua, jadanik eraikitzen ari den Hazparnekoarekin batera. Herria

Elbarriturik eta mugiezin, Brooklyn Heightsen alokaturik zuen apartamentutik ateratzeko ezgauza, urteak eman zituen zubiaren **eraikuntzaren** nondik norakoak etxeko leiho ondotik zuzentzen, teleskopio bidez lanak ikuskatzen zituen bitartean. Harkaitz Cano

Dena prest nuen **eraikuntzarako**. Elizen arteko biblia

Eraikuntza horretan, justizia erabiliko dut plomutzat, zuzenbidea nibeltzat. Elizen arteko biblia

Zer parte hartzen dute, ernalkuntzaren aurretik, amaren geneek enbrioiaren **eraikuntzan**? Juan Garzia

Limes baten ezarpenak sorturiko gizarte-eustorma eta urtegi baten **eraikuntzak** sorturiko eustorma fisikoa izadiko lege beraren mende daude. Iñaki Mendiguren

2 (izenondoekin)

Eraikuntza astuneko belaontzia, Atlantikoan ibiltzen zena, K.a. 56an Zesar harritu zuena, gero Britainia deituko zen penintsula hartu zuenean. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eraikuntza epeak murriztuko ditu, kostuak txikitu eta produktibitatea handitu. Berria - Ekonomia

Maroko Gobernuz Kanpoko hainbat erakundek ere eraikuntzen egoera kaxkarra nabarmendu eta Rifen **eraikuntza** legeak ez zirela betetzen salatu zuten atzo. Berria - Mundua

Etcheverry jaun abokataren laguntza ere ardietsi du, Prefeturak eman duen urdandegiaren **eraikuntza**-baimena ezeztatzeko. Herria

Diru-laguntza hau erabilia izanen da Garaziko ikastolaren **eraikuntza**-gastuentzat. Herria

Esan israeldarrei nolakoa izan behar duen tenpluak, beren erruez lotsa daitezen. **Eraikuntza**-planaz ohartzean, lotsa izango dira egin duten guztiaz. Elizen arteko biblia

Abangoardioako **eraikuntza** teknologietan, aeronautikan eta jarduera aeroespazialetan. Berria - Gaiak

Zubiaren **eraikuntza** lanak hasi eta gutxira, sute bat gertatu eta hainbat ordu igaro zituen Washington Roeblingek urpean, aire kamara bat osatzen zuen kutxa neumatiko batean harrapatuta. Harkaitz Cano

Julian Palmero, CCOOko **Eraikuntza** arduraduna. Berria - Ekonomia

Bizkaian, 2003 urtean, 405.538 tona hondakin batu zituzten han eta hemen egindako **eraikuntza** eta eraispen lanetan. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Borondatea da, hain zuzen, etxe-**eraikuntza** osoko oinarrien euskarria. Joan Mari Lekuona

5 irud/hed

Pertzepzio oro, epai oro, ezagutza oro, **eraikuntza** da, modu orokorrean, hipotesiak eta zentzumen-organoek emandako datuak alderatuta egina.Pluralismoa, **eraikuntza** denean bakarrik izan daiteke positiboa. Josu Zabaleta

Teorien **eraikuntzaren** tradizioaren barruan, biologoek edo kimikariek jakintza horiei buruzko teoria bat ulertu ohi duten bezalaxe uler daitekeen hizkuntz teoria zabal bat sortzeko hizkuntzalari batek egin duen lehen saio serioetako bat da. Itziar Laka

Erlisio katolikoa eta nazio nortasunaren **eraikuntza** Euskal-Herrian. Herria

Hau adigaien **eraikuntzaren** bitartez egindako arrazoimenaren erabilera da. Ibon Uribarri

Ezagutza filosofikoa adigaietatik abiatzen den arrazoimen-ezagutza da, ezagutza matematikoa adigaien **eraikuntzatik** abiatzen dena. Ibon Uribarri

Analogia mailaka baliatzen den eta konbentzioz erabil daitekeen **eraikuntza** bat delako ideia hori adierazteko, kode kontzeptuaren ordez, beraz, hizkuntzalaritzako jatorriak markatua baita beti, nahiago dugu adierazle kontzeptua erabili (eta analogia-aztarrenak direla esango dugu), **eraikuntza** oso horretan parte hartzen duten irudiaren elementu

guztiak izendatzeko. Josu Zabaleta

6 *irud/hed (izenondo eta izenlagunekin)*

Eraikuntza teoriko honen bigarren "estaia", errealtasun-efektua, originalagoa da. Josu Zabaleta

Kontzeptuak **eraikuntza** deduktibo birtual batean kokatzeko nahia izan beharrean, deskribatu beharko litzateke eurak agertzen diren eta zirkulatzen duten enuntziatuen eremuaren antolakuntza. Xabier Arregi

Paraliteraturak beste era bateko **eraikuntza** narratiboa du. Berria - Kultura

New Yorken deuseztatutako azken **eraikuntza** historikoa izan omen zen Penn Station. Bernardo Atxaga

Jada kolokan omen da XX. mendeko **eraikuntza** sozial nagusitzat har daitekeen Ongizate Estatua. Iñaki Heras

Zer aterako dugu honetatik, zer askatasun, zer **eraikuntza** nazional, zer ostia... Juan Kruz Igerabide

'Eraikuntza europarrerako estrategia sindikala' izeneko txostenean. Berria - Euskal Herria

Forma sinbolikoaren kontzeptua [...] Ernst Cassirer alemaniar filosofoari zor zaio; gizakiak munduarekin harremanetan jartzeko baliatzen dituen **eraikuntza** intelektual eta sozial handiak hartzen dira kontzeptu horren barruan. Josu Zabaleta

Koadro batean **eraikuntza** geometriko sail batek baliteke inoiz, gutxitan, koadroarentzat prestamenerako "arkitektura" bezala balio izana. Josu Zabaleta

Francastelek luzaro aztertu du, irudiarekiko erlazioari dagokionez, zer dagokion irudimenezko espazioaren **eraikuntza** aktiboari. Josu Zabaleta

Obra baten **eraikuntza** "extatikoa" -filma izan, pintura izan, literaturazkoa izan- metaketa-prozesu batean eta bat-bateko eztanda prozesu moduko batean oinarritzen da. Josu Zabaleta

Artistak, berriz, barne-mundu bat deskribatzen du; objektuek eta gertakariek ez dute han inolako errealtasunik: giza gogoaren **eraikuntza** huts gisa agertzen dira. Juan Garzia

Ikuslearen eginkizuna guztiz aktiboa da, Gombrichen iritzian: "(ber-)ezagutzaren" ikusmenezko **eraikuntza**, "oroitzapenaren" eskemak baliatzea, bata eta bestea irudiaren osotasunaren ikuspen koherentea eraikitzeko adostea. Josu Zabaleta

7 *irud/hed (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

Erresistentzia garaitik **eraikuntza** garairako pausoa islatzen du aitak, hau da, oposizioaren kultura hautsi eta erabakietan eragina izateko asmo duen garai berrirako pausoa. Berria - Mundua

Kartzela berrien **eraikuntza** boom handia izan da azken urteetan, bereziki gune atzeratuetan. Iñaki Heras

Zelulak aurkitzearekin, **eraikuntza**-batasuna frogatu zen: biziaren atomoak edo; gero, eboluzioaren teoriarekin, jatorri-batasuna. Juan Garzia

Eraikuntza-ahaidetasuna, lehenik, zeren, zelula argiratu denetik, organismo bizi oro "klon"tzat jo baita, zelula-koloniatzat. Juan Garzia

Luzara ikusiko zenbat kalte ekarriko dion horrek Angeluko **eraikuntza** ingeniaritza eskolari. Herria

Arrautza horretan daude **eraikuntza**-materialak: proteinak, koipeak, azukreak, mitokondrioak, eta gunea, hantxe baitaude irarrita eulia sorrarazteko behar diren aginduak. Juan Garzia

Honelakoetan, **"eraikuntza**-homonimia" gertatzen dela esango dugu, eta, gure gramatika egokia bada, hizkuntzako perpaus honek anbiguoa izan beharko luke. Itziar Laka

8 *irud/hed (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

Nazio **eraikuntza** bera kriminalizatu eta Euskal Herria egituratzeko xedea geldiarazi nahi izan zuten. Berria - Euskal Herria

Nazio **eraikuntza** eta **eraikuntza** soziala eskutik doazela uste dugu. Berria - Euskal Herria

Enuntziatu bat eratzeko ez da beharrezkoa hizkuntza-**eraikuntza** erregularra. Xabier Arregi

Den-denak perpaus gramatikalak dira, perpaus-**eraikuntzarako** bide soil eta oinarrizkoenak erabiliaz egindakoak. Itziar Laka

9 eraiki den gauza fisikoa. ik **eraikin**.

Patioan **eraikuntza** asko zegoen: mirabeen bizitokiak, aletegiak, sotoak... nabarmenki zahartuak denak. Jose Morales

Haren herrixkan nahaste-borrastea zen nagusi: **eraikuntzak** hor, zaharberritze-lanak han, karea, adreiluak eta habeak kale guztietan pilaturik. Jose Morales

Etxea eraiki ondoren arkitektoa erretiratu arren, haren lanaren eta presentziaren premiarik gabe **eraikuntzak** zutik dirau. Imanol Unzurrunzaga

Ez zuten **eraikuntza** bukatu. Anjel Lertxundi

Eraikuntzaren gainean, teilatuaren ordez, autoak eta prototipo berriak probatzeko erabiltzen zuten pista handi bat dago. Anjel Lertxundi

Eraikuntzaren atean iltzaturik zeuden azken dekretuak bai eta epaitegi erabakiak. Elena Touyarou

Arnasestuka sartzen ginen **eraikuntzaren** lehen solairuko galeria luzean, non ikasgeletako ateak lerroan jarrita zeuden. Bernardo Atxaga

Zer den harrizko **eraikuntza** bat, zutabeak, kapitelak dituena, eliza bat bezala egituratua. Josu Zabaleta

Lurjabeen **eraikuntzetako** teilatu gorriak. Jose Morales

Tenpluaren inguru guztian, sala handiaren eta santutegiaren hormei atxikia, **eraikuntza** bat egin zuen, hiru solairukoa. Elizen arteko biblia

Ikusgarria da **eraikuntzaren** forma gordinek osotasunari ematen dioten dotorezia. Anjel Lertxundi

Firmitas, utilitas, venustas, hau da, **eraikuntzaren** sendotasuna, **eraikuntza** bere funtzioari egokitua egotea eta edertasuna. Santiago Iruretagoiena

Eraikuntzako arduradunak, bezperan medikuak bezala, ez zizkion galdera askorik egin. Aritz Gorrotxategi

10 (izenondo eta izenlagunekin)

Soalarreko zutarria azken urteotako aurkikuntza megalitikorik garrantzitsuena izango dela ohartarazi dute dagoeneko adituek, gure artean ez baita, oraintsu arte, iruditeririk aurkitu horrelako **eraikuntza** neolitikoetan. Berria - Kultura

Gaztelu hil baten arkitektura harrigarri oso baten isla marrazten zuen hondoa jotako **eraikuntza** zahar izugarri eta miresgarri bat. Josu Zabaleta

Dama zuri eder bat sartu da **eraikuntza** zaharrean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tormes ibaiari bizkarra emanda dago eta txundituta begien aurrez aurre dauzkan hain **eraikuntza** ederrekin -katedrala, unibertsitatea, irlandarren Kolegio Nagusia...-, eguzkirik ezkutatzen ez zaion inperio handiaren emaitza harrigarriekin. Anjel Lertxundi

Mendixka baten kontra eraikia izan zen **eraikuntza** handi bat. Ramuntxo Etxeberri

Eraikuntza karratu astun eta gotorra da, itxura ahaltsukoa. Josu Zabaleta

Eraikuntza erraldoiak, etxe orratzak, etxe-bizitza bihurtu diren ur-ontzi tradizionalak, karrika jendetsuak, [...]. Ramuntxo Etxeberri

Irudipena dut diseinua eta moda erakusketetan eta pasareletan ageri dela, baina ez kalean, dendetako erakusleihoetan, **eraikuntza** publikoen hornikuntzan. Anjel Lertxundi

Etxeko otsein guztiek **eraikuntza** urrutiratu batean zuten lotarako lekua. Josu Zabaleta

Ezagutzen dugun haren **eraikuntza** bakarra Fano hiriko basilika da. Santiago Iruretagoiena

Hau da **eraikuntza** diastiloen proportzioak finkatzeko metodoa. Santiago Iruretagoiena

Gaur egungo atziloketa kopuruari eusteko, Frantziak behin-behineko **eraikuntza** bat baliatuko du. Berria - Euskal Herria

Halako zahartasun berealdikoa atzeman zien Txitxikovek zurezko **eraikuntza** haiei guztiei: izbetako enborrak ilunak eta zaharrak ziren, teilatu askok galbaheak baino zulo gehiago zituzten. Jose Morales

11 (hitz elkartuetan)

Leiho biribileko argi motelduak **eraikuntza**-barrena zeharkatzen zuen alderik alde, eta presbiterio-moduko baten isla itzaltsuak erakusten zituen ekialdeko horman. Anjel Lertxundi

· Ez da Anoetako Belodromoa itoginak dituen kirol **eraikuntza** bakarra. Berria - Kirola

12 eraikinak eta kidekoak egiteko jarduera.

Hegazkin arinen garraioan eta **eraikuntzan** hasi zen lanean, eta lanbide horiek Manilara eraman zuten. Berria - Kirola

Garai horretan **eraikuntzarekin** erlazionatutako profesionalei, hala eskala arkitektonikoan nola hirigintzaren nahiz lurralde-eraldakuntzaren eskalan, gaitasun gero eta

zabalagoak eta dibertsifikatuagoak eskatzen hasi zitzaizkien. Santiago Iruretagoiena

Kargutik kendu zituen **eraikuntza**-batzordeko funtzionarioak. Jose Morales

Hamar urte geroago -ezkondua ordurako, eta **eraikuntza** entrepresa batean ingeniari-, kotxea autopista baten biaduktoan aparkatu eta bere burua bota zuen. Bernardo Atxaga

Ezaguna nuen, **eraikuntzako** marrazo bat, ez hain aspaldiko sindikalista. Aingeru Epaltza

Batetik, **eraikuntzan** erabiltzeko material berriak ikertu beharko lirateke, eta, bestetik, **eraikuntzan** eta eraikina eraistean sortuko diren hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea landu beharko genituzke. Berria - Gaiak

Lan-talde honetan **eraikuntzarako** material berriak ikertzen ari dira, eguratseko kutsadura gutxituko dutenak. Berria - Gaiak

Hondakinak, gainera, **eraikuntza** gaiak egiteko erabil daitezke. Berria - Gaiak

ACCIONA (%1,76) **eraikuntza** eta zerbitzu enpresak 727 milioi eurotan saldu du Vodafonen zuen %0,48ko partaidetza. Berria - Ekonomia

Eraikuntza sailean aipatzen da üsü langile eskasa badela. Herria

Gorakada **eraikuntza** sektorearen hazkunde nabariagatik gertatu zen batipat. Berria - Ekonomia

Sektoreka, **eraikuntza** da oraindik «euskal ekonomiaren alor dinamikoena». Berria - Ekonomia

13 bertuetaren bidean ongi aritzea edo aritzeko eredua ematea; horren ondorioa.

Autorearen lehen helburua ez zen Ordenako arazoez aritzea, fededunen debozio eta **eraikuntza** sustatzeko Frantzisko santu eredugarri bezala aurkeztea baizik. Askoren artean

Haragitik hasi zara eta, beraz, zeure **eraikuntza** espiritualari oinarri galgarria jarri diozu. Patxi Zubizarreta

Eta hainbeste izan baitziren haren hutsalkeria-lagunak, konbertsioa ere **eraikuntza**-aukera handia izan zen askorentzat. Askoren artean

Bere arimaren kontsolaziorako eta hurkoen **eraikuntzarako**. Askoren artean

Frantziskotar familietan aszesi-testu eta espiritu-**eraikuntzarako** orientabide bezala irakurri izan dira. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adreiluzko eraikuntza (3); **banaketa hesiaren eraikuntza** (6); **basilikaren eraikuntza** (3); **bat eraikuntza** (4); **batean eraikuntza** (4); **baten eraikuntza** (18); **berriaren eraikuntza** (6); **beste eraikuntza** (4); **da eraikuntza** (9); **dira eraikuntza** (11); **diren eraikuntza** (4); **dituen eraikuntza** (4); **dituzte eraikuntza** (3); **du eraikuntza** (3); **dute eraikuntza** (3); **duten eraikuntza** (3); **edo eraikuntza** (3)

eraikuntza alorrean (4); **eraikuntza alorreko** (7); **eraikuntza arauak** (3); **eraikuntza arloan** (4); **eraikuntza arloko** (10); **eraikuntza bakarra** (3); **eraikuntza bat** (18); **eraikuntza batean** (5); **eraikuntza batzordeak** (3); **eraikuntza bera** (6); **eraikuntza bere** (4); **eraikuntza berri** (8); **eraikuntza berria** (6); **eraikuntza berriak** (5); **eraikuntza berriaren** (4); **eraikuntza bertan** (6); **eraikuntza bertan behera** (5); **eraikuntza bukatu** (4); **eraikuntza bultzatu** (4); **eraikuntza bultzatuko** (3); **eraikuntza bultzatzea** (5); **eraikuntza bultzatzeko** (4); **eraikuntza da** (11); **eraikuntza deduktibo** (3); **eraikuntza edo** (4); **eraikuntza enpresa** (15); **eraikuntza enpresak** (17); **eraikuntza enpresaren** (3); **eraikuntza enpresek** (4); **eraikuntza enpresen** (5); **eraikuntza ere** (7); **eraikuntza erraldoiak** (4); **eraikuntza eta** (50); **eraikuntza eta gatazkaren** (3); **eraikuntza eta obra** (3); **eraikuntza eta zerbitzu** (5); **eraikuntza europarraren** (3); **eraikuntza euskal** (3); **eraikuntza ez** (6); **eraikuntza greban** (3); **eraikuntza guztiak** (3); **eraikuntza guztiz** (3); **eraikuntza handi** (8); **eraikuntza handi baten** (3); **eraikuntza hartan** (4); **eraikuntza hau** (4); **eraikuntza hauek** (4); **eraikuntza helburu** (3); **eraikuntza honek** (3); **eraikuntza honen** (3); **eraikuntza hori** (5); **eraikuntza hutsa** (4); **eraikuntza intelektual** (3); **eraikuntza iraunkorra** (3); **eraikuntza izan** (5); **eraikuntza izan zen** (3); **eraikuntza lan** (4); **eraikuntza lanak** (22); **eraikuntza lanen** (5); **eraikuntza lanetan** (13); **eraikuntza legeak** (3); **eraikuntza material** (3); **eraikuntza materialak** (4); **eraikuntza modu** (3); **eraikuntza nazionala** (10); **eraikuntza nazionala eta** (4); **eraikuntza nazionalaren** (18); **eraikuntza nazionalaren alde** (4); **eraikuntza nazionalaren aldeko** (4); **eraikuntza oso** (3); **eraikuntza osoa** (3); **eraikuntza proiektua** (4); **eraikuntza proiektuak** (4); **eraikuntza prozesua** (4); **eraikuntza prozesuan** (6); **eraikuntza prozesuaren** (4); **eraikuntza sektorea** (6); **eraikuntza sektoreak** (4); **eraikuntza sektorean** (10); **eraikuntza sektorearen** (7); **eraikuntza sektoreko** (8); **eraikuntza soziala** (9); **eraikuntza soziala eta** (4); **eraikuntza zahar** (3)

baten eraikuntzak (4); **bestelako eraikuntzak** (3); **eraikuntzak dira** (4); **eraikuntzak egiteko** (4); **eraikuntzak eta** (7); **eraikuntzak ez** (7); **ere eraikuntza** (5); **espainiako eraikuntza** (4); **espainiako eraikuntza arauak** (3); **eta eraikuntza** (67); **eta eraikuntza lanetan** (3); **eta eraikuntza nazionala** (3); **eta eraikuntzak** (5); **eta nazio eraikuntza** (7); **etxebizitzen eraikuntza** (7); **europako eraikuntza** (6); **europaren eraikuntza** (18); **euskal herriaren eraikuntza** (13); **gasteiz eraikuntza** (3); **gipuzkoako eraikuntza** (9); **halako eraikuntza** (4); **haren eraikuntza** (3); **harrizko eraikuntza** (3); **helburua nazio eraikuntza** (3); **herriaren eraikuntza** (16); **herriaren eraikuntza nazionalaren** (3); **herriaren nazio eraikuntza** (11); **hesiaren eraikuntza** (14); **hesiaren eraikuntza bertan** (3); **horren eraikuntza** (3); **industria eta eraikuntza** (4); **izeneko eraikuntza** (3); **kuartelaren eraikuntza** (3); **mendeko eraikuntza** (3); **museoaren eraikuntza** (3); **nazio eraikuntza** (75); **nazio eraikuntza bera** (3); **nazio eraikuntza bultzatzea** (5); **nazio eraikuntza bultzatzeko** (4); **nazio eraikuntza eta** (9); **nazio eraikuntza prozesuan** (3); **nazio eraikuntzak** (9); **nortasunaren eraikuntza** (3); **sacyr eraikuntza** (3); **tenpluaren eraikuntza** (6); **zen eraikuntza** (10); **ziren eraikuntza** (3); **zuen eraikuntza** (5); **zuten eraikuntza** (10)

donostia gipuzkoako eraikuntzako (8); **dute eraikuntzako** (3); **eraikuntzako arduradunak** (7); **eraikuntzako enpresa** (3); **eraikuntzako enpresak** (5); **eraikuntzako eta** (3); **eraikuntzako lan** (5); **eraikuntzako langile** (5); **eraikuntzako langile bat** (5); **eraikuntzako langileak** (6); **eraikuntzako langileek** (10); **eraikuntzako langileen** (5); **eraikuntzako materialak** (3); **eraikuntzako ordezkariak** (3); **eraikuntzako sindikatuek** (5); **eta eraikuntzako** (13); **gipuzkoako eraikuntzako** (22); **gipuzkoako eraikuntzako arduradunak** (3); **gipuzkoako eraikuntzako lan** (3); **gipuzkoako eraikuntzako langileek** (5); **gipuzkoako eraikuntzako sindikatuek** (4); **labeko eraikuntzako** (4); **latasa labeko eraikuntzako** (3); **zuen eraikuntzako** (4)

baten eraikuntzan (8); **dira eraikuntzan** (3); **edo eraikuntzan** (3); **eraikuntzan ari** (3); **eraikuntzan ari diren** (3); **eraikuntzan aritzen** (3); **eraikuntzan aurrera** (7); **eraikuntzan diharduten** (4); **eraikuntzan duen** (4); **eraikuntzan erabiltzeko** (4); **eraikuntzan erabiltzen** (3); **eraikuntzan eta** (22); **eraikuntzan ez** (3); **eraikuntzan izandako** (3); **eraikuntzan lan** (8); **eraikuntzan lan egiten** (3); **eraikuntzan lanean** (4); **eraikuntzan lanean ari** (4); **eraikuntzan parte** (10); **eraikuntzan parte hartu** (4); **eraikuntzan sartu** (3); **eraikuntzan sinesten** (4); **eta eraikuntzan** (20); **eta nazio eraikuntzan** (5); **europako eraikuntzan** (5); **europaren eraikuntzan** (12); **euskal herriaren eraikuntzan** (10); **gipuzkoako eraikuntzan** (4); **herri eraikuntzan** (3); **herriaren eraikuntzan** (12); **horren eraikuntzan** (3); **nazio eraikuntzan** (51); **nazio eraikuntzan aurrera** (7); **nazio eraikuntzan diharduten** (4); **nazio eraikuntzan eta** (4); **nazio eraikuntzan parte** (3); **nazio eraikuntzan sinesten** (4)

baten eraikuntzarako (4); **eraikuntzarako biltzarra** (4); **eraikuntzarako biltzarrean** (3); **eraikuntzarako eta** (8); **eraikuntzarako eta gatazkaren** (4); **eraikuntzarako materiala** (3); **eraikuntzarako nazio** (4); **eraikuntzarako proposamena** (10); **eraikuntzarako proposamena eta** (4); **eraikuntzarako proposamenak** (3); **eta eraikuntzarako** (5); **eta nazio eraikuntzarako** (15); **europaren eraikuntzarako** (5); **euskal herriaren eraikuntzarako** (3); **herriaren eraikuntzarako** (3); **hurkoaren eraikuntzarako** (3); **nazio eraikuntzarako** (52); **nazio eraikuntzarako biltzarra** (4); **nazio eraikuntzarako biltzarrean** (3); **nazio eraikuntzarako eta** (3); **nazio eraikuntzarako nazio** (3); **nazio eraikuntzarako proposamena** (10); **nazio eraikuntzarako proposamenak** (3); **zein nazio eraikuntzarako** (3)

adigaien eraikuntzaren (10); **adigaien eraikuntzaren bitartez** (8); **adigaien eraikuntzatik** (3); **baten eraikuntzaren** (4); **da eraikuntzaren** (4); **edo eraikuntzaren** (3); **eraikuntzarekin aurrera** (3); **eraikuntzarekin zerikusia** (3); **eraikuntzarekin zerikusia duten** (3); **eraikuntzaren alde** (12); **eraikuntzaren aldeko** (8); **eraikuntzaren alorrean** (3); **eraikuntzaren aurka** (3); **eraikuntzaren bidean** (4); **eraikuntzaren bidetik** (3); **eraikuntzaren bitartez** (8); **eraikuntzaren eta** (7); **eraikuntzaren eta gizarte** (3); **eraikuntzaren gogoeta** (3); **eraikuntzaren inguruan** (8); **eraikuntzaren inguruko** (3); **eraikuntzaren izenean** (3); **eraikuntzaren kostuak** (5); **eraikuntzaren oinarri** (3); **eraikuntzaren sektorean** (4); **eraikuntzaren zilegitasuna** (5); **eraikuntzari begira** (13); **eraikuntzari buruz** (8); **eraikuntzari buruzko** (9); **eta eraikuntzarekin** (3); **eta eraikuntzaren** (11); **eta nazio eraikuntzaren** (8); **europako eraikuntzaren** (5); **europako eraikuntzari** (3); **europaren eraikuntzarekin** (3); **europaren eraikuntzaren** (8); **europaren eraikuntzari** (3); **euskal herriaren eraikuntzaren** (5); **herriaren eraikuntzaren** (6); **herriaren nazio eraikuntzaren** (3); **hesiaren eraikuntzaren** (3); **nazio eraikuntzaren** (68); **nazio eraikuntzaren alde** (8); **nazio eraikuntzaren aldeko** (5); **nazio eraikuntzaren alorrean** (3); **nazio eraikuntzaren bidean** (4); **nazio eraikuntzaren gogoeta** (3); **nazio eraikuntzaren inguruan** (4); **nazio eraikuntzari** (22); **nazio eraikuntzari begira** (11)

---

eraikuntze ik **eraikuntza**.

---

erail, erailtzen *(orobat **erahil** g.er.)* **1** du *ad* aurrez pentsatuz eta maltzurkeriaz hil. ik**asasinatu**.

Ortiz Franco eta Francisco Arratia Saldierna: Droga trafikoaren inguruan egiten ari ziren kazetari ikerketengatik **erail** egin zituzten, eta oraindik ez dute inor atxilotu hiru hilketa horiek egiteagatik. Berria - Kultura

Santanderren atxilotua eta **eraila**. Berria - Euskal Herria

Euskal Herrian «bizitza oso bat independentistak torturatzen, **erailtzen**, jazartzen, atxilotzen» daramatela salatu zuten. Berria - Euskal Herria

Ez da, beraz, zuzena bidaiariari bidelapurra hiltzeko baimena ematen dion araua, honek bidaiaria **erail** baino lehenago. Imanol Unzurrunzaga

Urtebete lehenago bere emazte Matilde Ziegler **erailtzeagatik** kondenatu zuten Kemmler. Harkaitz Cano

Festa nazionalaren bezperan, Jean-Paul Marat "Herriaren Adiskidea" **eraila** izan zen Parisen. Elena Touyarou

Ez dezagun gehiago jende zibila **erail**, ez gaitezen gehiago krudelkerian erori; gu ez gaude gobernu edo alderdi baten zerbitzuan, herriaren zerbitzuan baizik. Pako Aristi

Jende ona gara gu, ez dugu ezer arpilatzen, ez dugu inor **erailtzen**. Karlos Zabala

Yiddish hiztunak ziren alemaniarrek heriotza esparruetan **erail** zituzten judu gehienak; eta baita Stalinek hil zituenak ere. Koro Navarro

Zein eskubide mota ote da gizonari beren kidea **erailtzeko** baimena ematen diona? Juan Martin Elexpuru

Merkatari hugonote hau gurpilean hil zuten bere semea **erailtzearen** akusaziopean. Juan Martin Elexpuru

Jende hori atxilotu eta **erail** edo desagertarazi izana leporatu zaie, batez ere DISIPekoei, giza eskubideen aldeko erakundeen aldetik. Pako Aristi

Eraildako neska hurrengo etxe-blokean bizi zen, 2230 Cameron Avenue-n. Lopez de Arana

Eta orain hilik zegoen, odol hotzean **erailik**. Oskar Arana

Halaxe egin ohi zuten Rafael Leonidas Trujilloren lekaioek eurek torturatu eta **eraildakoekin**. Edorta Jimenez

Erail gabe heriotza zigorra jarri norbaiti. Berria - Kirola

2 *adkor*

New Yorkeko Poliziak berrogeita bat tiro emanda **erail** baitzuen, Bronxen, Sagar Handiak bere txortena galtzen duen lekuan. Harkaitz Cano

Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren arabera, «Frantziako espetxe politikak **erail** du Oihane». Berria - Euskal Herria

Txikia **erail** zutenean, Euskal Herriari zuzendutako eskutitz bat kaleratu zuten bertako preso politikoek. Jokin Urain

Deus ez nekien naziek 1942 an deportatu eta **erail** zuten amona errusiar honi buruz. Joxan Elosegi

Lege anker, zentzugabe, bidegabeek milioika lagun **erail** dezakete mende bakar batean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Istorio bat nola bukatu ez dakienean idazleak akabatu egiten ditu pertsonaiak, urkatu, **erail**, desagertarazi: sua eman eszenografia guztiari eta dekoratuak erre. Harkaitz Cano

Maita ez daitekeen gauza hotza da Estatua; **erailtzen** du eta suntsitzen, ahal duen guztia. orduan maitemintzen edo desmaitemintzen gara, edo tornado batek hamar mila pertsona **erailtzen** ditu Ertamerikan. Piarres Xarriton

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Asko Lepke baino okerrago, batzuk psikologikoki hilak, **erailak**, "sendabide"ari esker. Bihozgabea, bere zoritxarra ezkutatu, beste errurik ez duen dohakabea ankerki **erailtzen** duelako. Xabier Olarra

Naboten mahastia konfiskatu zuena haren jabea juztiziaren ezpataz **erail** ondoren. Juan Martin Elexpuru

Nahigabeen aldetik, inork ez du ezagutzen ezbehar gorriagorik, Jesukristo guztiz zuzenak baino: lotsagarri **eraila** izan, gurutzean. Jenaro Garate

4 (era burutua izenondo gisa)

Barkamenak ezin du alaba **eraila** berpiztu. Joseba Zulaika

Informatzaile **eraila**: hipotesi guztiak zabalik. Aingeru Epaltza

Sortu berritan okerrerako guztiz joerarik gabea izanik, zelan daiteke okerrera jo, nahigabeak, hilak, **erailak** eta, negargarriena, eraileak sorraraziz? Jenaro Garate

Txerri ehiztariek txerritxoak nola, norbaitek Theo Van Gogh hautatu du artista **erailen** zerrendarako. Berria - Ekonomia

5 *irud/hed adkor*

Ezin dut, ez dut itxarongo, **erailtzen** ari dira gure eztei gaua. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita erail (3); **eder onetan erail** (3); **erail bear** (3); **erail bear nabe** (3); **erail egin** (6); **erail eta** (5); **erail zituzten** (9); **erail zuela** (5); **erail zuen** (8); **erail zuten** (5); **eraila izan** (7); **erailtzen ari** (3); **eta erail** (6); **eta eraila** (4); **onetan erail** (3); **onetan erail bear** (3)

---

erailarazi, erailaraz, erailarazten *(orobat **erahilarazi**)* du *ad* erailtzera behartu.

Maximok Graziano enperadorea, Teodosioren laguna, **erailarazi** berri zuen Lyon-en. Juan Martin Elexpuru

---

eraile[1] *(orobat **erahile** g.er.)* **1** *iz* aurrez pentsatuz eta maltzurkeriaz hiltzen duen pertsona.

Laster jakin izan zuen **erailea** George Hamilton zela. Gotzon Garate

Ustezko **erailea**, ordea, polizia bat zen. Gotzon Garate

Sarajevoko eta Kosovoko izugarrikerietan pentsatzen ari naiz, milaka eta milaka pertsona errugabe sarraskituetan, zergatik, eta **eraileak** ez bezalakoak zirelako bakarrik. Oskar Arana

Erailerik ere izango zen jende multzo ikaragarriaren tartean: akaso Poliziaren galderen aurrean bizilagunek "erabat pertsona normal eta langile" bezala deskribatzen dituzten horiek, akaso sekula harrapatuak ez diren **eraileen** ehuneko hainbateko hura osatzen zuten sindikatu ezkutuko partaideak Harkaitz Cano

2 (era burutua izen gisa)

Sortu berritan okerrerako guztiz joerarik gabea izanik, zelan daiteke okerrera jo, nahigabeak, hilak, erailak eta, negargarriena, **eraileak** sorraraziz? Jenaro Garate

Oholtzan, agintariak mugitu ziren, urduri, eta Pinetek **eraileari** keinu egin zion. Elena Touyarou

---

eraile[2] ik **ereile**.

---

erailketa *(orobat **erahilketa** g.er.)* **1** *iz* erailtzea.

"Erailketa bat izan da", lagundu dio Manuk, "hamaika bala sartu dizkiote Inaxi Zeberiori, enboskada bat izan da eta hiltzera joan dira, garbi-garbi". Pako Aristi

Berriz epaitzen ari dira Meiwes, aurreko auzian giza-hilketagatik zigortu zuten, eta orain **erailketa** leporatu nahi diote. Berria - Gaiak

Berrueta hil zuen poliziari **erailketa** egotzi diote akusazioek. Berria - Euskal Herria

Dagoeneko X askotxo ikusiak ditut nik, **erailketa** gertatu zen lekua markatzeko jarriak. Lopez de Arana

Hiltzailea zimino hura izan zela onartuta ere, kosta egiten zen istripuaren hipotesia ontzat ematen: aukerarik sinesgarriena, Linok Elsa leziatu eta honek Linoren asmoak haren ordez inkontzienteki [...] bete izana zen, horrela, ziminoa **erailketa** burutzeko bitarteko hutsa baino ez zen noski izango, eta Lino zeharkako hiltzaile, krimenaren egile intelektual eta justiziaren aurreko erantzule bakar. Harkaitz Cano

Erailketa ez zen zigorrik gabe geldituko eta Jaurenea-ko nagusiak pairarazi zuen oinaze guziaren ordaina ukanen zuen. Elena Touyarou

Biolentzia sexistak, tratu txarrak, bortxaketak eta emakumeen **erailketak** amaitzea. Berria - Harian

Galindok Lasa eta Zabalaren bahiketa eta **erailketarengatik** 75 urteko kartzela zigorra jaso bazuen ere lau urte eta hamar hilabete baino ezbaititu bete espetxean. Berria - Euskal Herria

Terroristak gelditzen ari zituzten, eta beren **erailketengatik** epaitzen zituzten. Elena Touyarou

Ez da bada katolikorik ohointza eta **erailketa** baino krimen handiagoa dela heresia, ukatuko duenik. Piarres Xarriton

Nola bilaka daiteke hosto baten erorketa istorio gogoangarri, eta nola **erailketa** baten narrazioa interesik gabeko istorio txatxu. Lander Garro

Baiona Tipian egin talde bortxaketa eta Hendaiako **erailketak** ere izan zituzten hizpide. Berria - Euskal Herria

Erailketa baten ikerketaren aurrean, ezinbestekoa da hiltzeko motiboak nork zituen jakitea, alegia, biktimaren desagertzeak nori egiten dion mesede. Ramon Saizarbitoria

Euren erabakiaren aurrez munstrokeria bat zena, giza **erailketa**, bat-batean etika iraultzailearen eskakizuna zen. Joseba Zulaika

2 *adkor*

Ez zen falta izan jenderik burua berotu, eta egunkarietara gutunak idaztera bultzatu zuena, zeinetan oso salaketa gogorrak egiten zituen: besteak beste, istripua **erailketa** izan zela. Ramon Saizarbitoria

Stalinen **erailketak** eta sarraskiak. erasotzaile injustuaren **erailketa**, legeak onartua. Imanol Unzurrunzaga

Auzitegi honen **erailketei** ihes egiteko, gutun bereziak lortu behar izaten ziren, enperadoreen babes-agiriak, eta hauek ere alferrik izaten ziren askotan. Juan Martin Elexpuru

Espetxe politikarekin egiten dute militanteen **erailketa** selektiboa. Berria - Harian

Torturaren bidez polizia funtzionarioek egindako Jose Arregiren **erailketa** gupidagabea, zorrozki zigortu beharrekoa da. Jokin Urain

Jorge Jeffreys (1640-1689), Ingalaterrako kantzilerra, famatua bere epai odoltsuengatik, horien artean William Russellen eta Sidneyren legezko **erailketak**. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erailketa bat (3); **erailketa baten** (3); **erailketa egotzi** (3); **erailketa gertatu** (3); **erailketa gertatu zen** (3); **erailketa izan** (4)

---

erailtzaile *(orobat **erahiltzaile**)* **1** *izond/iz* erailtzen duena.

Begitartea odolbildu bat eginda zeukaten pertsonak ikusi ditut, eta begi-zuloak hutsik zeuzkan koitadu bat, izugarria, izugarria, eror bedi Profetaren ezpata **erailtzaileen** gainean. Jon Alonso

2 irud/hed

Eragile gehienek gaitzespen eta mespretxuzko mezuak zabaldu zituztela gogoratu du, eta askok Carod-Roviraren **«erailtzaile** politikoa» izatea leporatu ziotela ETAri. Berria - Euskal Herria

---

erailtze *(orobat **erahiltze**)* *iz* **1** aurrez pentsatuz eta maltzurkeriaz hiltzea.

Ez gerla ixtorio, ez-eta ere **erahiltze**, bahitze, bortxatze, ixtripu edo nik dakita zein berri latz! Herria

1991 an eta 1992 an eginarazi zituen **erahiltze** eta masakreak orduko iraultzaren egun txarrenetan. Herria

Merkatari hugonote hau gurpilean hil zuten bere semea **erailtzearen** akusaziopean, inolako froga sinesgarririk gabe. Juan Martin Elexpuru

Legeak hotza izan behar baitu berez, ezin da gizonen grinen esku laga, eta ezin du zilegitu **erailtzearen** ekintza ankerra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Okupazioak kartzela bilakatu duen lurralde horretan bizi ezina erakusten du filmak, paradisuari buruzko gogoetak batetik; baina **erailtzearen** kontrako gogoetak ere bai, bestetik, erresistentziako heroi baten alabaren ahotik. Berria - Kultura

Jakin minez leitzen zituen Monduteguyk guziz erregularki helarazten zizkion berriak: Luis Capet errege ohiaren epaiketa eta **erailtzea**, Ingalaterra eta Holandarekiko gerla, Frantziako lau eskualdetan eta bereziki Vendée inguruan gertatzen ziren asaldatzeak. Elena Touyarou

2 *adkor*

Luis Capet errege ohiaren epaiketa eta **erailtzea**. Elena Touyarou

Nafarroako Gobernuaren zigortzat eta mendekutzat jo du herriak horrela **erailtzea**, eta gertakari horren inguruan isilik geratu zirenen jarrera salatu. Edurne Elizondo

---

erain ik **erein**.

---

eraisgarri *izond* eraits daitekeena, eraisteko modukoa.

Ewing jaunak, esan ohi zuen senarraren belarri entzungorren gibelean, ez zion alferrik deitu izan beti "itutxo prestu eta **eraisgarria"**. Mirentxu Larrañaga

---

eraisketa **1** *iz* lurrera eroraraztea. ik **eraispen**.

Hasia zen Donostia mendetan barrena gartzela bihurtu zuen murru madarikatuaren **eraisketa**. Txillardegi

New Yorkeko Dorre Bikien **eraisketa**, irudi pornoak eta kiroletako eszenak lotzen dituen bideoak irudien banalizazioari buruzko hausnarketa egiten du. Berria - Kultura

Palestinarren etxeen **eraisketa** gelditzeko ezin duela ezer egin esan zuen Annanek. Berria - Mundua

Elkartearen lehenengo ekintzak nahikoa arrakastatsuak izan ziren -XVI. mendeko zubi baten **eraisketaren** kontrako helegitea, Pilsudski kaleko kafetegi modernistaren zaharberritze lanen gelditzea-, eta horrek indarra eman zion taldeari, hasieran. Iban Zaldua

2 irud/hed

Bizkaian ez dugu beste **eraisketa** industrial bat onartuko, eta ez dugu nahi Naval Izarretik bereiztea, porrot tekniko eta ekonomikora eramatea litzatekeelako. Berria - Ekonomia

Txinan konfuziar letragizonen aldi bateko **eraisketak** aukera beranta eman zion murgilduta zegoen herri-literaturari bertako hizkuntza bizian Txinako gizarte-bizitzaren gainaldera irteteko. Iñaki Mendiguren

---

eraiskuntza *iz adkor* eraisketa.

Indeterminazioaren printzipioak ekintza politikorako abiapuntu gisa ere balio lezake, eta **eraiskuntza** nazionala izango luke ardatz eta muin; ongi irakurri duzu **eraiskuntza**, *s* eta guzti: eraitsi egin behar baitira nazioak eta beste gauza batzuk, handienetatik hasita, Kapitalaren inperio antiterroristatik hasi eta beste guztietaraino. Iñaki Segurola

---

eraisle *(orobat **erausle**)* *izond/iz* eraisten duena, suntsitzailea.

Haren ondoren, haren indarrik eta handitasunik gabe bada ere, beharbada, beste **eraisle** bat dator, Iparreko beste hartz bat, Schopenhauer, hark ez baitzituen utzi nahi izan maisuak, ausardia faltaz, laztankiro gorde zituen itzurbideak. Josu Zabaleta

Kant izan da gezur greko-semitikoaren **erausle** handia. Josu Zabaleta

---

eraispen *iz* lurrera eroraraztea. ik **eraisketa**.

Horri guztiari eraikuntza eta **eraispenetan** izandako hondakinak batuz gero, iaz, Bizkaian, 1.131.305 tona hiri hondakin batu ziren. Berria - Euskal Herria

Ekimen honen aurkako erasoen adibidetzat jo zuten Euskal Jairen suntsitzea, Larrabetzuko *Hori Bai* gaztetxearen kontrako neurriak, eta Getxoko gaztetxeen **eraispenak**. Berria - Euskal Herria

Itoiz herriaren **eraispenaren** aurkakoa. Txema Ramirez de la Piscina

Eraispen-lanak erlatiboki errazak izaten ari ziren, eta erlatiboki goiz bukatuko ziren. Jon Alonso

Irailaren hasieran jendea gaztetxean zegoela **eraispen** enpresa bateko teknikariak agertu ziren, lokala ikuskatzeko asmoarekin. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Iraultzaren Aginte Kontseiluko lehendakariorde kargua bete zuen, [...] Husseinen estatuaren **eraispenaz** geroztik desagertu zen arte. Berria - Mundua

Israel eta Judako erresumak [...] mundu siriakoko parroki estatu gerrazale askotariko bi izan ziren; eta komunitate mundutar horien **eraispena** eta beren handinahi politiko guztien desagertzea izan ziren judaismoaren erlijioa sortarazi zuten esperientziak. Iñaki Mendiguren

Saioak iraun zuen 48 ordu doi haietan kontu ugari gertatu ziren: aginte konstituzionalaren **eraispena** (Chávez kargutik kenduz); enpresarien buru Pedro Carmonaren autoizendatzea presidente kargurako eta, azkenean, ordenamendu konstituzionalaren berrezartzea (Hugo Chávez-en itzulerarekin). Txema Ramirez de la Piscina

Ezkerreko ikuspegitik neoliberalismoaren aurka azaldu da Baiona Iraultzen, txiroen bazterketa, eta klase ertainen prekarizazioa eta zerbitzu publikoen **eraispena** salatu du. Berria - Euskal Herria

Herodotoren bederatzi liburuak arretaz irakurtzen dituenak, historiak eskain ditzakeen krimen, **eraispen**, heroismo eta bidegabekeria, ontasun eta gaiztakeria-konbinazio guztiak badituela. Josu Zabaleta

---

eraiste *iz* lurrera ororaraztea. ik **eraisketa; eraispen**.

Geologiaz ez dakit ezertxo ere eta deskuidatuta egon naiteke beraz, baina oso behartua eta sinesgaitza iruditu zitzaidan argumentuko aitzakia hori, herria **eraiste** eta berreraikitzearen ingurukoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Amaia Fernandez Barakaldoko Arau Urbanistikoen zinegotziak atzo adierazi zuenez, **eraiste** lanak bi epetan egingo dute: desmuntatzea eta eraisketa. Berria - Euskal Herria

Hasierako marrazki asaldagarrienen artean -Chrisen ustez- etxe-**eraisteen** eta lurrikaren eszenak zeuden. Xabier Olarra

---

eraitsi *(**567** agerraldi, **105** liburu eta **113** artikulutan; ETCn **5.214** agerraldi; orobat **erautsi** g.er.)*, eraits, eraisten **1** du *ad* jaitsarazi, ororarazi; jaitsi.

Neuk eraikia, neuk **eraisten** dut; neuk landatua, neuk erauzten. Elizen arteko biblia

Hainbatetan **eraitsia**, beste hainbatetan berreraikia. Edorta Jimenez

Zubi altxagarria **eraitsi**, eta, Hassan igaro orduko, berriz altxatu zuten. Jon Muñoz

Lanceloten parera iritsi zelarik, berebiziko indarrarekin ekin zion, ezkutua lantzarekin zulatu, saihetsa zauritu, eta zalditik **eraitsi**. Juan Kruz Igerabide

Badakigu 1440. urtean Erandioko apezak -frai Alfontso esaten ari zenarekin zeharo alditxartuta- pulpitutik kolpeka **eraitsi** zuela fraide lizuna. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lau tiroz **eraitsi** behar izan zuen, malapartatua! Karlos Linazasoro

Saski batean leihotik **eraitsi** ninduten harresian behera, eta horrela ihes egin nuen haren eskuetatik. Elizen arteko biblia

Badirudi lurraren hondoraino **eraitsi** nahi gaituela bideak. Mirentxu Larrañaga

2003. urtean, Nafarroako zazpi herri **eraitsi** zituen Miguel Sanzen gobernuak: Itoitz, Artozki, Orbaitz, Artzi, Gorriz, Ezkai, Muniain eta Nagoreren erdia, eta Osako etxe bat ere bai. Edurne Elizondo

Eraikin bat **eraits** daitekeen bezala. Xabier Kintana

Oinaztua nola sortzen da eta halako bultaz, ezen zartako batean dorreak arraila baititzake, etxeak **eraits**, habeak eta zutabeak erauz, heroien monumentuak loka eta uzkail, gizakiak hil, aziendak aldran akaba? Xabier Amuriza

Hari atzera eragitea da etxe bat bultzaka **eraitsi** nahi izatea bezala. Oskar Arana

Hondakinen gainean beste eraikin bat altxatzeko **eraitsi** dute etxe zaharra, baina oraindik ez dira etxe berria erakitzen hasi. Jose Morales

Zeure maitaleen esku utziko zaitut; zure prostituzio-lekuak suntsitu eta **eraitsiko** dituzte. Elizen arteko biblia

Gat, Jabne eta Axdodeko harresiak **eraitsi** zituen, eta gero hiriak eraiki Axdod eskualdean eta filistearren lurraldean. Elizen arteko biblia

Jesus gurutzetik **eraitsirik**, izara batean bildu zuen eta haitzean zulaturiko eta oraindik beste inor ehortzi gabeko hilobi batean ezarri. Elizen arteko biblia

Eguzkia sartzean, gorpua zuhaitzetik **eraisteko** agindu zuen Josuek. Elizen arteko biblia

Oinarrizko zuhurtzia batek esaten zion Gizon Handiari ez zela komeni defentsa-hesiak **eraistea** hain azkar. Jon Alonso

Zurezko dorre higikorra egin eta, hirira hurbildurik, harresietako dorre bat **eraitsi** eta hartu egin zuen. Elizen arteko biblia

Azken urteetan gaztetxe ugari hustu eta **eraitsi** dira. Berria - Harian

Zirimol oldartsuan korrituz, tantai handiak zelaietan **eraisten** ditu eta mendi tontorrak bere putz oihan apurtzailez astintzen. Xabier Amuriza

Masta **eraitsi** beharko litzateke ziria haren azpitik kendu ahal izateko. Edorta Jimenez

-Arranopola, oraintxe gogoratu naz -esan zuen Hagridek, eta eskuaz bekokia jo zuen, zaldi bat **eraisteko** bezain indartsu. Iñaki Mendiguren

Zaldizkoak, zeletatik **eraitsiak**, lurrean arrastaka zebiltzan. Agustin Otsoa

Ospitale hura, dagoeneko **eraitsia** dagoena zorionez, eraikin zikin, nazkagarri, kiratsez bete bat zen. Josu Zabaleta

Berehala pegarra besoetara **eraitsirik**, edaten eman zion. Elizen arteko biblia

Tiroka hasi ziren, harik eta beste gabiraiak ere **eraitsi** zituzten arte. Anjel Lertxundi

Goian borrokan ari zirenei tiro egin zien hegazkinen aurkako kanoiarekin, eta, miraria!, hegazkinetako bat **eraitsi** zuen. Jokin Urain

Kuku-erlojua **eraitsi** nuen hormatik. Harkaitz Cano

Galileok berak aukeratutako pisua zuten bolak plano inklinatutik **eraitsi** zituenean [...], argi bat piztu zitzaien natur zientzialari guztiei. Askoren artean

Erdi **eraitsita** egon arren, Euskal Jai bizirik dela erakusten jarraitzen dute Iruñeko gaztetxeko kideek. Berria - Euskal Herria

Batetik, eraikuntzan erabiltzeko material berriak ikertu beharko lirateke, eta, bestetik, eraikuntzan eta eraikina **eraistean** sortuko diren hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea landu beharko genituzke. Berria - Gaiak

Pinu **eraisten** dabilen basomutil gazte bati irakurria diot bere land-roverrean "baso esplotakuntza" duela lanbide. Iñigo Aranbarri

2 irud/hed

Gero, gehiegikeriak: bi urte, izuz eta ikaraz, menderatzeko Irlandako katolikoen matxinada eta hainbat eskoziarren buru harroak lurreraino **eraisteko**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Udaberriko haizeak, loreak loratzen dituen horrek berak, **eraitsi** zuen amona. Juan Kruz Igerabide

Jaunak zutik eusten die umilei, lurreraino **eraisten** ditu gaiztoak. Elizen arteko biblia

Beste tiro batez, mandoa **eraitsi** zuen. Alberto Ladron Arana

Kantek **eraitsi** zuen metafisika, Hegelek beste modu batean egin bezala, Schopenhauerrek ere berriro altxatu du. Askoren artean

Bekatuaren zentzura itzartzen dira, antzinako gizarte-egitura **eraisten** ikusteak sorturiko astinaldiaren bidez. Iñaki Mendiguren

Europako gizarte eredu hori **eraitsi** nahi duten presio taldeak. Berria - Ekonomia

Mantxu-dinastia **eraitsi** egin zuten K.o. 1911n krimen bikoitzagatik. Iñaki Mendiguren

Herrien arteko mugak ezabatu ditut, haien ondasunak harrapatu eta, gudari ausartaren gisa, erregeak **eraitsi**. Elizen arteko biblia

Tronu hori **eraitsi** dugularik, eta zorionez betiko, ez dezagun haren oinarriak desegiteko beldurrik izan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina harrokeriaz eta handiustez bete zen, eta erregetzatik **eraitsi** egin zuten eta bere aintza galdu zuen. Elizen arteko biblia

Lotsaturik geldituko dira jakintsuak, **eraitsiak** eta preso hartuak izango. Elizen arteko biblia

Denbora-tarte labur horretan Tsin-go Cheng erregeak ordu arte bizirik zeuden beste sei erresumak **eraitsi** zituen eta horrela estatu unibertsal sinikoaren sortzaile bihurtu zen, Tsin She Huang-ti tituluarekin. Iñaki Mendiguren

Gizarte-mugimendu ekintzaile berria sortzen laguntzea agintean dauden egiturak **eraitsi** ahal izateko. Txema Ramirez de la Piscina

Espainiar inperioak, kasu, hainbat koloniatan olibondoak eta mahastiak landatzea debekatu zuen; edota Britainia Handiak Bengalako ehungintza edota Egiptoko altzairugintza industria **eraitsi** zituen. Iñaki Heras

Sinesteak oro, itxaropenak, olertiak, ilusioak azpikoz goratu zituen, lehiak birrindu, arimaren uste onak erauzi, maitasuna hil, emakumearen gurtza ideala **eraitsi**, bihotzaren ilusioak zulatu, inoiz egin den eszeptiko lanik erraldoiena burutu zuen. Josu Zabaleta

Objekzio kritikoa besterik ez da, ordea, teoria **eraisten** duena. Ibon Uribarri

Eraitsita, burua makur, oin muturretara begira paseatuz ematen duzu eguna, hitz egiteko animorik gabe. Jokin Urain

Errotik egindako zaharberritze lanik gabe, munduko ekonomiak badu historia errepikatu eta behera erortzeko arriskua: XX. mendeko beste utopia asko bezalaxe -lehenengo laissez-faire globala, faxismoak eta komunismoa, besteak beste-, goitik behera **eraistekoa**. Iñaki Heras

Garaituak eta moralki **eraitsiak** soldaduak eta herritar zibilak, haurrak, emakumeak eta zaharrak. Jokin Urain

Mundua estetikoki eraiki (edo **eraitsi**) nahi dugu. Berria - Kultura

3 (era burutua izenondo gisa)

Etxe **eraitsi** batean aurkitutako baldosa hautsiak biltzen jarduten zuten. Pello Lizarralde

Dorre **eraitsia** ez zen gehiago exekuzioetarako leku aproposa. Aingeru Epaltza

Zer pisu bat bere larruazal nabarra igurzten ari zen enbor **eraitsiaren** kontra. Aingeru Epaltza

Urrikalmen [...]: Erdi aroko guduetan oinezko soldaduak zaldun **eraitsiari** hilkorra zela erakusteko erabili ohi zuen sastakaia. Xabier Olarra

Beste gurin pilak, hasiak, ganibet zabalez zorrotz zizelkatuak, ibarrez eta pitzadurez josiak, tontor **eraitsien** antzekoak ziren, udazkeneko arratsalde baten zurbiltasunak urreztaturik. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artozki eraitsi (5); **bat eraitsi** (6); **behera eraitsi** (5); **eraits ditzagun** (4); **eraitsi aurreko** (3); **eraitsi aurretik** (5); **eraitsi behar** (6); **eraitsi beharko** (3); **eraitsi du** (4); **eraitsi dute** (3); **eraitsi egin** (10); **eraitsi egin behar** (4); **eraitsi egingo** (5); **eraitsi eta** (21); **eraitsi izana** (6); **eraitsi nahi** (6); **eraitsi ondoren** (9); **eraitsi zituen** (10); **eraitsi zituenean** (3); **eraitsi zituzten** (8); **eraitsi zituztenean** (3); **eraitsi zuen** (15); **eraitsi zuenean** (4); **eraitsi zuten** (26); **eraitsi zutenean** (3); **eraitsiko dituzte** (3); **eraitsiz gero** (3); **eta eraitsi** (16); **etxe eraitsi** (6); **etxea eraitsi** (3); **etxeak eraitsi** (5); **gaztetxea eraitsi** (7); **guztiak eraitsi** (4); **harresia eraitsi** (3); **harresiak eraitsi** (7); **hau eraitsi** (3); **herri eraitsi** (3); **herria eraitsi** (3); **herriak eraitsi** (5); **hori eraitsi** (4); **hustu eta eraitsi** (7); **jai gaztetxea eraitsi** (3); **lurrera eraitsi** (6); **lurrera eraitsi eta** (3)

eraikina eraisteko (4); **eraikina eraisten** (4); **eraisteari ekin** (3); **eraisteko agindu** (3); **eraisteko agindua** (3); **eraisteko baimena** (5); **eraisteko eta** (3); **eraisteko lanak** (8); **eraisteko lanen** (6); **eraisteko lanen inguruko** (3); **eraisteko lanetan** (3); **eraisteko operazioa** (8); **eraisteko operazioa hasi** (3); **eraisteko operazioan** (3); **eraisten ditu** (4); **eraisten dituena** (3); **eraisten dituzte** (3); **eraisten du** (4); **eraisten hasi** (4); **eraisten zituzten** (3); **eraisten zuen** (3); **eta eraisteko** (25); **eta eraisteko operazioa** (6); **eta eraisteko operazioan** (3); **etxeak eraisten dituena** (3); **euskal jai eraisteko** (6); **gaztetxea eraisteko** (12); **gaztetxea eraisteko lanak** (3); **gaztetxea eraisteko lanen** (3); **harresiak eraisteko** (5); **harresiak eraisteko baimena** (3); **husteko eta eraisteko** (18); **jai eraisteko** (6); **jai gaztetxea eraisteko** (4); **jo eta eraisteko** (3)

---

eraitsiarazi, eraitsiaraz, eraitsiarazten du *ad* eraistera behartu.

Aitatxiren begi gazteek ikusi zuten nola konkistzatzaileek Nabarreriako gaztelu zaharra eta Santiago komentua **eraitsiarazi** zituzten. Aingeru Epaltza

---

eraitsitzale *izond* eraisten duena.

Agure ororen **eraitsitzaile** hark frantses politikari errepublikazale doktrinario batekin izandako elkarrizketarena kontatu zidan. Josu Zabaleta

---

eraizi, eraiz, eraizten du *ad* atera. ik **erauzi**.

Giza arrazoimenean datzan arazoen erroa **eraizi** behar da; nola **eraizi** dezakegu bera, ordea, ez badiogu askatasunik ematen, ezta elikagairik ematen gainera, bere orriak bota ditzan eta horren bitartez aurkitua izan dadin, orduan sustraiak erauzteko? Ibon Uribarri

---

erakargarri *(**890** agerraldi, **162** liburu eta **395** artikulutan; ETCn **10.653** agerraldi)* **1** *izond* erakartzen duena. (pertsonez)

Neska **erakargarri** mordo bat topatu dut, zeru urdinera begira etzanda. Txillardegi

Beste emakume **erakargarri** bat larrugorritan noiz etorriko zain? Fernando Rey

Leire emakume **erakargarria** da oraindik -behi txikerra beti bigantxa-, eta nork daki, bere aukeratxoak izango lituzke saiatuz gero. Patxi Iturritegi

-Tipo **erakargarria** zen hala ere, bazeukan zerbait... denok genekien barruan sekretu bat gordetzen zuela! Pako Aristi

Katedraletik irteten ari nintzela, gure bidaia egitera bakarrik etorri den mutil **erakargarria** sartu da. Patxi Zubizarreta

Bagoiaren beste muturrean gizon gazte **erakargarri** bat eseri da. Lourdes Oñederra

Gizaseme iharra, ernea eta **erakargarria** zen. Mirentxu Larrañaga

Kaskatu xamarrak, baina **erakargarri**, bikote **erakargarria**. Lourdes Oñederra

Telebistan, horma kareztatuen eta paper orrien zuritasun egoskor hori gabe, jende famatua, giro dotorea eta solas **erakargarriak** kausituko ditu. Joseba Sarrionandia

-Emazteak, Sheila izeneko izaki **erakargarri** horrek. Xabier Olarra

Undinak bezain **erakargarri** dira, pozoia bezain hilgarri, harrigarriro bitxi, asaldagarri, beldurgarri. Josu Zabaleta

Neska hura **erakargarri** egiten zitzaion, kanpoko edertasunagatik eta bereziki izaeran erakusten zuen barne segurtasunagatik. Joxemari Iturralde

Arestian aipatu dudan Karmelo, beste mutil ezinago diskreto eta **erakargarri** bat, Bostongo ezezaguna eta laurok. Patxi Zubizarreta

Emakumeentzat oso **erakargarri** zen gizona. Anton Garikano

Ez zaizkio gustatzen **erakargarri** izateko ahaleginik egiten ez duten emakumeak. Oskar Arana

Pertsonaia **erakargarri** bat etortzen bazait, berdin dit zinema, telebista edo antzerkia. Berria - Kultura

Artista **erakargarri** anitzez beteriko egitarauan Flamin' Grooviesen kontzertua nabarmentzen da. Berria - Kultura

Zenbat eta gehiago edan, orduan eta **erakargarriago** ikusten nuen Itsaso. Aitor Arana

Bere iritziz, halere, Teresa **erakargarriagoa** zen. Migel Angel Mintegi

Vilniusen jendea **erakargarriagoa** da, irekiagoa, kulturaz aberatsagoa. Berria - Mundua

Erakargarriagoa eta misterio gehiagokoa, bai behar ere, baina ez urrunagokoa. Anjel Lertxundi

2 (bestelakoez)

Gai liluragarria, xarmangarria, **erakargarria**. Iñaki Mendiguren

Afrobeat estiloan dinamika handiko ikuskizun **erakargarria** aurkezten du. Berria - Kultura

Erronka zaila eta **erakargarria** da era berean. Berria - Kultura

Ez didazu esango ideia **erakargarria** iruditzen ez zaizunik zure hiletarena. Harkaitz Cano

Nik itxura **erakargarria** dut, gaztetatik dakit hau. Juan Martin Elexpuru

Itxura eskasa, iharra; baina hala ere **erakargarria**. Anton Garikano

Hankak eta ipurdia ezin **erakargarriagoak** zituen, eta, mugitzerakoan, bere titi txiki alaiak erdizka erakusten zituen noizean behin, xarma handiz. Karlos Zabala

Modu **erakargarri** eta ulergarrian erredaktatuta egon beharko dute. Berria - Gaiak

Geroago, laster ulertu nuen begirada **erakargarri** hori, aldi berean inguratu eta biluzten duena. Eduardo Matauko

Hogeita hamabost urte oso adin **erakargarria** da. Antton Olano

Oso gizon **erakargarriaren** ospea zuen. Josu Zabaleta

Elkar-lan horretan bertsolarien egitekoa da elkar hartu eta bien artean saio **erakargarri** eta koherentea osatzea, batak bestearen gainetik geratu beharrik izan gabe Baldin eta ikuspegi **erakargarri** eta itxurazkoek lehenen hertsapena ukatzera behartuko ez bagintuzke. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Enpresa globalentzako soilik **erakargarriak** diren eskualdeak eta biztanleak daude ikusgai aro globalean. Iñaki Heras

Berria izateaz gain, zirkuitoak baditu berezitasun **erakargarri** batzuk. Berria - Kirola

Ziklo hegemoniko honen bukaeraren beste berezitasun bat, Robert Reich-ek eman duen deskribapen **erakargarriaren** arabera, bere lurralde-oinarritik gero eta bereiziago dagoen estatubatuar kapitalismoaren dinamismo iraunkorra da. Koro Navarro

Azalpen **erakargarria** litzateke, noski, baina nork daki zer dagoen haur baten gogo barruan? Xabier Mendiguren Elizegi

Hiri **erakargarria** da Madril; ez abokatu batentzat, mitologia irakurri eta biolina jotzen duen batentzat baizik. Unai Elorriaga

Hargatik maite nuen frantsesa, bortxaz ikasi arren, hizkuntza horretan irakurtzen nituelako liburu **erakargarriak**. Ana Urkiza

Frantziako Iraultzaren egutegia egitura **erakargarria** zen. Iñaki Mendiguren

Hormadik erronka **erakargarri** eta gogorra ukanen du gaur. Berria - Kirola

Zenbait baskok [...] baskoek, indartsuak eta anarkikoak izatearen ospea izateaz gainera, gerran legez gerra ostean ere Francoren aurka jardun izan zuten- Sun Valley inguruetan etxaldeak sortu zituen, eta alderdi hori ere **erakargarri** zitzaion. Edorta Jimenez

Errenta finkoaren errentagarritasun txikiak, burtsa **erakargarri** egin du. Berria - Ekonomia

Nola desiratzen nuen joko **erakargarri** hartan edo abestalde kulunkarian parte hartzea, [...]. Koro Navarro

Leunki entzuten dena entzumenari zaio atsegin eta **erakargarri**. Imanol Unzurrunzaga

Familia osoarentzako dibertsioa zen negoziobide berria: ekintza filmetarako zinemak, bideo-joko aretoak, teatro **erakargarri** baina ez serioegia, jantoki azkar eta merkeak, eta antzeko hainbat jostaketa-bide. Iñaki Zabaleta

Alde horretatik nobela **erakargarri** eta entretenigarri baten aurrean gaudela esan genezake. Berria - Kultura

Kontzertuaren planteamendu bitxi eta **erakargarri** hau [...] egokia da musika eta bere ingurua ulertzeko. Berria - Kultura

Bizitzako proiektu **erakargarri** baten traza dute Abdul Karimen hitzek, zenbaitek planteamendu horrekin gure gizartean ez dagoela bizitzerik esango badu ere. Pako Aristi

Literatur atari aktibo, **erakargarri** eta interesgarria jarri du Susak gizartearen eskura. Berria - Kultura

Beti izan zuen ahots ona, baina, orain, zaharragoa izanik [...] halako tasun berri eta **erakargarri** bat erantsi zitzaion: sakona, urratua eta sentsuala zen zerbait, halako xalotasun hunkigarri eta bihotz urratzaile bat, jarlekuan tente jarri eta entzutera behartzen zintuena. Oskar Arana

Lehen kalakaldian berean senditu zuen Kattalinek bazuela zerbait **erakargarri**. Eneko Bidegain

Mailegu haiek bereziki **erakargarriak** gertatzen zitzaizkien garapen-bideko herrialde askori. Koro Navarro

Ai! haragia, simaur **erakargarri** bizia, ibiltzen, pentsatzen, hitz egiten, begiratzen eta irribarre egiten duen ustelkia, janari guztiak hartzitzen diren lekua, arima bezala arrosa-kolorea, polita, tentagarria, engainagarria dena. Josu Zabaleta

Bazuen hauskortasun samur halako bat eta herabetasun ia etsigarri bat, Durant jaunari behinola **erakargarri** iruditu zitzaizkionak. Mirentxu Larrañaga

Zer da euskara berezi, **erakargarri** egiten duena? Berria - Euskal Herria

Begiak bakarrik ditu lehen bezain **erakargarri**. Patxi Iturritegi

Aingeru bat zirudien, baina ez zen aingeru bat, eta horrexek egiten zuen **erakargarri**. Jon Alonso

Mihipean arroka biluziaren gogortasun gazia **erakargarri** zitzaidan. Itxaro Borda

Abenturak eta abenturaren barruan sortzen diren egoerek egiten dituzte **erakargarri** Verneren narrazioak. Berria - Harian

Deportivok erronka **erakargarria** du. Berria - Kirola

Misterio hura **erakargarria** gertatzen zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Miretsi egiten zuen tresna hura, **erakargarria** zitzaion. Unai Iturriaga

Misterio guztiak **erakargarri** zaizkigun neurrian ez nekiela dagoeneko, jarraitu omen nuen, zer egiten zitzaidan **erakargarriago**, bera ala bere misterioa. Joxean Agirre

Autoikaskuntza, «geroz eta **erakargarriagoa**». Berria - Euskal Herria

Euskal Herriak balio erantsia ekarriko duten inbertsioentzat **erakargarria** izan behar duela zehaztu zuen. Berria - Ekonomia

Indartsuak eta **erakargarriak** diren mezu berriak asmatu behar izaten ditugu. Berria - Harian

Eskaintza **erakargarria** zen oso: hilabetean joan-etorria Karibera, luxuzko transatlantiko batean. Berria - Kultura

Proposamena ez zen oso **erakargarria**, baina hankabikoak aukera bat merezi zuela erabaki nuen, zerbait erabakitzeagatik. Jon Alonso

Horrek, baina, ez du esan nahi ezezaguna beti **erakargarria** denik. Berria - Gaiak

Talde handi bat hartzea beti da **erakargarria** (Real Madrilena beste inorena baino **erakargarriagoa** Iruñean), baina **erakargarria** bezain erabakigarria da gaurko norgehiagoka Osasunarentzat. Berria - Kirola

3 (adizlagunekin)

Gau arropa dirdiratsuekin jantzirik egoten omen ziren, eskote zabalekin, izugarri **erakargarriak**, usain arraroko zigarroak erretzen, opioa igual. Joseba Sarrionandia

Nazioarteko ekonomiaren (eta, oro har, merkatuko ekonomiaren) sorreraren agerpen hori oso **erakargarria** da, baina ez dator bat ikerketa historiko eta antropologikoaren irakatsiekin. Koro Navarro

Beste horrenbeste esan daiteke Afrika Iparraldea-Ekialde Hurbila eskualdeaz, petrolio-baliabideek oso **erakargarria** bihurtu baitute merkataritzaren ikuspuntutik. Koro Navarro

Arnheimen teoria hau **erakargarria** da oso; besteak beste, dinamikoa delako. Josu Zabaleta

Oso gizon **erakargarriaren** ospea zuen, ia ezetzik eman ezinezkoa. Josu Zabaleta

Michel Foucault-en lanean ageri da aldaketa hori oso modu **erakargarrian** azaldua. Koro Navarro

Lehen baino askoz **erakargarriago**, esango nuke nik. Lopez de Arana

Hala ere, geure buruari galderak egitea askoz ere **erakargarriagoa** da, erantzunak aurkitzea baino. Luis Elberdin

Askozaz ere **erakargarriagoak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Talde handi eta askotarikoa biltzen zen eskumatara, eta ezkerretara txikiago eta nolabait **erakargarriago** bat, tartean gure mutiletako batzuk. Urtzi Urrutikoetxea

Gizonak lehengoa izaten darrai, ez zuen inoiz sakontasun larregirik izan, baina arintasun hori hain zen **erakargarria** bizitza arina zenean! Pako Aristi

Eta, hori, ez zaio biziki **erakargarria** iduritzen. Eneko Bidegain

4 (adizlagun gisa)

Emakumea, horra, nolakoa da emakumea? Hor dagokigu begira, kilikatzaile, **erakargarri**. Josu Zabaleta

5 (izen gisa)

Ikuskizunaren bigarren **erakargarri** handia aurkeztu zuen orduan Edgarrek. Joxan Elosegi

Pasaiako mendiek bi **erakargarri** berezi dauzkate enetako. Koldo Izagirre

Ildo horretatik Itoizko urtegia jendearentzat **«erakargarri** turistiko» bilakatu nahi du Konfederazioak. Berria - Euskal Herria

Hori baita torneoaren **erakargarri** nagusia, lehen mugarria, San Fermin torneoa alegia, Asegarcek irabazi zuen. Berria - Kirola

Gorde ez beste denak egiten dira: aldarrikatu, bistaratu, erakutsi, turisten **erakargarri**. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bereziki erakargarri (4); **bezain erakargarri** (4); **da erakargarri** (4); **erakargarri bat** (18); **erakargarri batean** (4); **erakargarri baten** (4); **erakargarri bilakatu** (3); **erakargarri egin** (4); **erakargarri egiten** (8); **erakargarri eta** (19); **erakargarri izan** (3); **erakargarri izateko** (4); **erakargarri suertatu** (3); **ere erakargarri** (4); **eta erakargarri** (12); **eta erakargarri bat** (4); **hain erakargarri** (3); **modu erakargarri** (4); **oso erakargarri** (6); **oso erakargarri eta** (3); **proiektu erakargarri** (3)

baina erakargarria (3); **batere erakargarria** (3); **bereziki erakargarria** (4); **bereziki erakargarria iruditu** (3); **beti da erakargarria** (3); **bezain erakargarria** (7); **biziki erakargarria** (3); **da erakargarria** (6); **da hain erakargarria** (3); **erakargarria antolatu** (13); **erakargarria antolatu du** (8); **erakargarria antolatu dute** (3); **erakargarria bezain** (4); **erakargarria da** (42); **erakargarria da oso** (4); **erakargarria dela** (18); **erakargarria du** (5); **erakargarria egin** (10); **erakargarria egingo** (3); **erakargarria**

egiten (8); **erakargarria egiten zitzaion** (4); **erakargarria ere** (5); **erakargarria eta** (10); **erakargarria ez** (5); **erakargarria gertatzen** (8); **erakargarria iruditu** (9); **erakargarria iruditu zitzaidan** (3); **erakargarria iruditzen** (9); **erakargarria iruditzen zait** (3); **erakargarria izan** (15); **erakargarria izan daiteke** (4); **erakargarria izango** (17); **erakargarria izango da** (7); **erakargarria izango dela** (3); **erakargarria izango du** (3); **erakargarria izatea** (5); **erakargarria prestatu** (3); **erakargarria zara** (4); **erakargarria zen** (13); **ere erakargarria** (7); **erronka erakargarria** (4); **eskaintza erakargarria** (3); **eta erakargarria** (28); **eta erakargarria egin** (3); **hain erakargarria** (10); **hori oso erakargarria** (4); **itxura erakargarria** (6); **izugarri erakargarria** (3); **jaialdi erakargarria** (4); **jaialdi erakargarria antolatu** (4); **lehia erakargarria** (3); **oso erakargarria** (31); **oso erakargarria da** (11); **oso erakargarria dela** (3); **partida erakargarria** (11); **partida erakargarria antolatu** (3); **saio erakargarria** (5); **txapelketa erakargarria** (3); **zen erakargarria** (3); **zerbait erakargarria** (3); **zinez erakargarria** (3)

are erakargarriago (4); **askoz erakargarriagoa** (4); **baino erakargarriago** (4); **baino erakargarriagoa** (7); **da erakargarriena** (7); **erakargarriago egin** (6); **erakargarriago egiten** (12); **erakargarriago egiten zuela** (3); **erakargarriagoa da** (7); **erakargarriagoa egin** (4); **erakargarriagoa eta** (3); **erakargarriagoa izan** (5); **erakargarriagoa izango** (3); **erakargarriak dira** (7); **erakargarriak dira oso** (3); **erakargarriak eta** (3); **erakargarriak gertatzen** (3); **erakargarriak izan** (8); **erakargarriena eta** (3); **erakargarriena jokatuko** (3); **erakargarrienetako bat** (3); **eta erakargarriago** (6); **eta erakargarriagoa** (7); **eta erakargarriak** (8); **ezin erakargarriagoa** (3); **horrek erakargarriago** (4); **horrek erakargarriago egiten** (3); **oso erakargarriak** (6); **partida erakargarriena** (3); **partidarik erakargarriena** (7); **partidarik erakargarriena jokatuko** (3)

---

erakargarriro *adlag* modu erakargarrian.

Hazten ari den zibilizazio batek kolapsoa jasaten duenean **erakargarriro** sortzaile zen gutxiengoa higuingarriro menderatzaile bihurtu delako, ondorioetako bat zera izaten da. Iñaki Mendiguren

---

erakargarritasun **1** *iz* erakargarria denaren nolakotasuna.

Beldurraren **erakargarritasuna**. Lourdes Oñederra

Kazetaritzak **erakargarritasuna** irabazi du literaturara hurbilduta. Berria - Euskal Herria

Bada oinarrizko arrazoi bat, Frantziskoren **erakargarritasuna** azaltzen duena: Frantziskok inor gutxik bezala ulertu zuen eta bizipen bihurtu Ebanjelioaren muina. Askoren artean

-Lanaren **erakargarritasuna** irabaz dezakezun dirutzan datza -besteak zehaztu. Migel Angel Mintegi

Euromerkatuek garapen-bideko herrialdeentzat zuten **erakargarritasuna** are handiagoa zen, haiei esker Munduko Bankuaren bitartekaritza saihets baitzitekeen. Asia Ekialdeko merkatuaren **erakargarritasun** gero eta handiagoa, txinatar merkatuarena bereziki. Koro Navarro

Bere **erakargarritasunagatik** eta aldi berean haien gain zertzen zuen presioagatik, Mendebaldeko juduak beren nazionalismoa asmatzera bultzatu zituen. Iñaki Mendiguren

Zientzialari batek ezin dio ikasle bati zalantzan jarri **erakargarritasunaren** legea, hori asmakizun hutsa delakoan. Pello Salaburu

Erakargarritasunez mugitzen du, bere buruari ere sexya izan litekeela erakutsiz. Urtzi Urrutikoetxea

Bazuen **erakargarritasunik** papar oparoak agerian uzten zuen panoramikak. Aingeru Epaltza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Nire **erakargarritasun** basatiaren deia sentitu du -esan nien lagunei, serio plantak eginez. Jon Arretxe

1995ean, Europar Batasuna Austria, Finlandia eta Suediara zabaldu zenean, argi geratu zen zenbaterainokoa zen dinamika horrek zuen **erakargarritasun** politikoa. Koro Navarro

Eraikin erraldoia 18 instituzioa Smithoniarretan azkena da, Washingtongo **erakargarritasun** kulturalik nagusiena. Berria - Mundua

Besteak zeuden, bakartiak, sexu erraz eta merkearen bila zihoazenak, hura baitzen askorentzat Kubaren **erakargarritasunik** handiena. Jon Muñoz

Hori da sarearen **erakargarritasunik** handienetako bat. Pello Salaburu

Horrek guztiak ezer gutxirako balio izango ziokeen Verneri, pertsonaia aberatsak sortzeko eta **erakargarritasun** handiko istorioak bizitasunez kontatzeko zuen dohain apartaren jabe izan ez balitz. Berria - Harian

Atzerriko inbertsiogileek **erakargarritasun** gutxiago ikusten diote orain dolarrari eta AEBetan inbertitzeari. Berria - Ekonomia

Ezinezkoa zirudien Heriotzaren aingeruak ez ikustea gizakiaren lurreko habitat-eko gordeleku eta zokoak, duela oso gutxi arte edo **erakargarritasun** gutxikoak edo iristezinak edota biak zirenak. Iñaki Mendiguren

Erakargarritasun eskasa telebistetarako. Berria - Harian

Bizirik ez badago, ez du inolako **erakargarritasunik** izango. Berria - Kultura

Niretzat kasuak, erraza izateaz gain, bazuen beste **erakargarritasun** gustuko bat: [...]. Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erakargarritasuna eta (4); **erakargarritasunik ez** (4)

---

erakargune *iz* erakartzen duen gunea.

Europaren eraikuntza, munduko beste eskualdeentzat ereduzkoa, inguruko herrialdeentzat **erakargunea**, epe luzera munduko ekonomiak pairatzen duen lankidetza faltaren irtenbidea izan daiteke. Koro Navarro

Torrigianik [...] bere ingurura begiratzen zuen atseginez, eta itxaropen sendoa zuen florentziar maisu baten erbesteko emaitza horiek Alpeez bestaldeko begirale guztien **erakargune** izateko. Iñaki Mendiguren

---

erakarle *izond* erakartzen duena.

Eta zure begiak erretratu batekoak bezain **erakarle**. Josu Zabaleta

---

erakarmen **1** *iz* erakartzeko ahalmena.

Hondoaren **erakarmena** eta lilura. Anjel Lertxundi

Ez dago maitasunik, dagoen bakarra ar eta emeak dira, ar eta emeen arteko harremana, **erakarmena**, sexuzko gozamena. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer axola dio horrek, tartean maitasuna, edo behintzat, **erakarmena** baldin badago? Hasier Etxeberria

Andresek sentimentalismo beharbada morboso samar horren **erakarmena** sentitu zuen. Josu Zabaleta

Hondoaren **erakarmena** eta lilura. Anjel Lertxundi

Euskaldunok naturarekiko eta zuhaitzekiko betidanik izan dugu **erakarmen** eta lotura apartekoa. Pello Zabala

Bertsogintzaren **erakarmen** eta prestigioa bultzatzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Dardar sumagaitz bat eragiten baitio urari ilargiaren **erakarmenak**, sei mutilen soslaia argitzen duen ilargi horrexek. Xabier Mendiguren Elizegi

Erakarmenez betetako begirada. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Alemaniaren aldeko hitzak zorrotzak eta pitzadurarik gabeak ziren eta, batez ere, **erakarmen** handiko tonuan esanak. Anjel Lertxundi

Peterrek dioenez, nire **"erakarmen** pertsonalagatik", baina hori ez da guztiz egia. Josu Zabaleta

Gizonen legeek ezin dute eragotzi nahasmendua eta bidegabekeria atseginaren eta oinazearen **erakarmen** kontaezin eta kontrajarrietan. Juan Martin Elexpuru

Ez hitzak, ez predikuak, eta ezta egiarik gorenenak ere ez dira aski agerian dauden gauzek sortzen duten **erakarmen** grinatsuari luzaz eusteko. Juan Martin Elexpuru

Beren gorputz edertasun guztiez jantzien, kolore guztien dotorezia eta usain guztien **erakarmen** hordigarria duten forma guztiez jantzien, esentzia lurrinduz. Josu Zabaleta

Guztiz ageriko gauza iruditzen baitzitzaidan, **erakarmen** hilgarri horren eraginpean gertatuz gero, gaurko itsasontzi handiena ere luma bat urakanaren kontra bezain babesgabe legokeela, eta berehala desagertuko litzakeela oso-osorik. Koro Navarro

Bestelako **erakarmena** zen harena. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sexu bat bestearengana bultzatzen duen **erakarmen** indar ikaragarriak. Juan Martin Elexpuru

Gaztelaniak eta frantsesak euskarak baino askoz ere dentsitate handiagoa dutela diozu, eta, ondorioz, euskarak baino **erakarmen** indar handiagoa. Berria - Euskal Herria

Kontua da afari hartan Kubako emakume ezkondu baten alboan jesarri zela, eta hasieratik igarri zutela elkarrenganako **erakarmen** isuria. Edorta Jimenez

Erakarmen zimiko bat sentitzen du haren aldera. Oskar Arana

Hain garaia izanik, bere gorpuzkera egoki, oliba-koloreko azal eta ilaje dotorearekin, ziurtatuta zeukan beti **erakarmen** moduren bat. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erakarmen indar (3)

---

erakarpen **1** *iz* erakartzea.

Nerabeenganako **erakarpena** betidanik egon da. Berria - Harian

Ipar Euskal Herrian artearekiko beste **erakarpen** eta mirespena sentitzen du jendeak. Berria - Kultura

Zuen buruei aitortu barik **erakarpena** elkartasunarekin sublimatzen ari zinetela. Eider Rodriguez

Zeruko gorputzen higiduren lege nagusiek erabateko ziurtasuna eman zioten Kopernikok hasieran hipotesitzat soilik hartu zuenari, eta aldi berean mundu-eraikina lotzen duen indar ikustezina frogatzen zuten (**Newtonen** erakarpena). Ibon Uribarri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez dakit, esango nuke Karmelok **erakarpen** handiagoa, erotikoagoa sortzen didala. Patxi Zubizarreta

Ez zion eragiten ez **erakarpen** ez gorroto argirik. Patxi Zubizarreta

Erromatarren munduak **erakarpen** txikia duela gaztetxoen artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Paris-Roubaix klasikoaren **erakarpen** berezia azaldu dio berriari Markel Irizarrek. Berria - Kirola

Animalia espezie guztiek beren eboluzioan **erakarpen** sexualerako hainbat mekanismo landu dituzte. Luis Elberdin

Zubiak bertigoa sentiarazi dit, eta Niagarako urjauzietan edo Death Valleyn bezala, halako **erakarpen** hipnotizagarria. Patxi Zubizarreta

Batzuetan, bi pertsonaren arteko bat-bateko **erakarpena** -izan liteke samurra eta lasaia, edo grinatsua eta burrunbatsua- sexuaren bidez zigilatzen da. Luis Elberdin

Gaur egun bikote askok ugalketaren kontua alde batera utzi eta beren harremana elkarrenaganako **erakarpenean**, sentimenduetan eta elkarrekin duten proiektu batean oinarritzen dute. Luis Elberdin

Gizon batek esaten badizu bere bizitza guztian sekula ez duela sentitu inolako **erakarpenik** beste gizon batengana, ez gazterik, ez transexual ederrik, ez deus, gezurretan ari da, besteekin edo bere buruarekin, baina gezurretan. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garapen-bideko beste eskualdeen artean, Ekialdeko Europa bakarrik da **erakarpen**-gune garrantzitsua. Koro Navarro

Gero, zaldi izutuaren brida ukabilaz hartuta, tiraldi ikaragarria eman dio eta **erakarpen** eremutik askatzea lortu. Karlos Zabala

Erdaren aldeko **erakarpen** faktoreak askoz indartsuagoak direla diozue, euskararen aldekoak baino. Berria - Euskal Herria

Handia baita denbora joanaren **erakarpen** indarra. Bernardo Atxaga

Lege fisikoak, izarren, astroen eta gorputz guztien arteko **erakarpen** indarrak, eta antzekoak. Joan Mari Irigoien

Zulo beltz hauek hain dentso eta boteretsuak zirela uste izan da, ezen argiak ere ezingo baitziokeen ihes egin bere **erakarpen** indarrari. Harkaitz Cano

Periko izeneko eskolapio bat, ordenako apaizgaien arduraduna, nik behin ezagutu eta pertsona faszinantea iruditu zitzaidana: argia, eta **erakarpen**-indar izugarrikoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Patua, edozein taxu harturik, gure bila etorri eta gure izenaz deitzen gaituenean, gure larriduraren eta beldurraren hondoan beti **erakarpen**-indar bat egoten duk. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erakarpen indar (6); **eta erakarpen** (3)

---

erakarrarazi, erakarraraz, erakarrarazten du *ad* erakartzera behartu, erakarri.

Liburuen Txokoko emakume gazteak **erakarrarazi** zion liburu harekiko arreta. Mirentxu Larrañaga

---

erakarri *(1.702 agerraldi, 222 liburu eta 468 artikulutan; ETCn 18.827 agerraldi)*, erakar, erakartzen **1** du *ad* norbaitek edo zerbaitek, indarren baten bidez, norbait edo zerbait hurbilarazi edo etorrarazi. (norbaitek norbait)

Emakumeak laster batean **erakarri** zuen gizasemea. Mirentxu Larrañaga

Mutilak beregana **erakarri** zuen neska, estu-estu. Mirentxu Larrañaga

Biek **erakartzen** ninduten. Fernando Rey

Eskuak nire eskuen gainean jarririk, bere bizkarraren kontra **erakarri** ninduen. Anjel Lertxundi

Nola **erakarriko** nuen ama eneganat, baldin aita Bartolomeren ideien eraginpean bizi bazen? Joan Mari Irigoien

Zelatan dago ezkutuan [gaiztoa], lehoia bere zuloan bezala; zelatan, dohakabea harrapatzeko: bere sarera **erakarriz** harrapatzen du. Elizen arteko biblia

Zuen aurretik doa Kristo Jauna bere arnasa emanez, eta berak **erakarriko** zaituzte maitasun-lokarriz mendi gailurrera. Askoren artean

Erakar gaitzazu zugana, aita santua, zure usain gozoen atzetik joan gaitezen. Askoren artean

Liluratu eta **erakarri** egiten gaituzte. Luis Elberdin

Laguna **erakartzeko** eta kitzikatzeko hainbat modu garatu ditugu milioika urteren ondoren, eta usain sexuala da horietako bat. Luis Elberdin

Ez zaizkit emakumeak bakarrik gustatzen; gizonek ere **erakartzen** naute. Luis Elberdin

Ez dakit lagun on bat nahi duen, ala neska bezala **erakartzen** dudan, ala arreba bezala. Josu Zabaleta

Gero, bere poltsa bazter batean utzi eta, gaineko arropa zokora zarta! jaurtirik, oherat **erakarri** ninduen. Aingeru Epaltza

Bertsoak gazteei hizkuntzarekiko atxikimendua ematen die, eta batek arrakasta badu, besteak **erakar** ditzake kultur errota horretara. Berria - Kultura

2 (norbaitek zerbait)

Adak, nire eskua harturik, alura **erakarri** zuen ezohiko kemen haserretu batez, eta saka egin zuen. Anjel Lertxundi

Zeure izen ona belztu zenuen eta askazia laidoztatu, seme-alaben gain sumina **erakarriz** eta zeure zorakeriaren ondorenak jasanaraziz. Elizen arteko biblia

Egizu gure herriak iraun dezala beti era horretako jarreran, eta **erakar** zeuregana herri honen bihotza. Elizen arteko biblia

Basurderen arreta **erakartzea** lortu zuen. Joanes Urkixo

Lehiakortasuna muturrekoa da kirol diziplina ezberdinen artean, antolatzaileek nekez **erakar** dezakete multinazionalen dirua euren kabuz. Berria - Kirola

3 (zerbaitek norbait)

Ez naiz inoiz itsusia izan, baina ez dut izan, ezta ere, gizonak **erakartzen** dituen edertasun mota hori. Ander Irizar

Sexuak hurbildu egiten gaitu, **erakarri** egiten gaitu. Luis Elberdin

Akorde bat jo zuen besteen arreta **erakarri** nahian. Joanes Urkixo

Iman batek nola, Parisek hala **erakartzen** zuen nabarmentzen zen jende oro: artistak eta bankariak, gaizkileak eta negozio-jendea, puta-zorriak eta espiak. Anjel Lertxundi

Jakin-minak **erakarrita**, bidea galdurik bezala joan zen Egutxi etxe sekretu hartara lehen aldiz. Ibon Uribarri

Jakin-minak **erakarrita**, bidea galdurik bezala joan zen Egutxi etxe sekretu hartara lehen aldiz. Ibon Uribarri

Musikak albo kalezuloetako gazte ugari **erakarri** zuen, eta samaldan hartu zuten Sanadikia kalea. Patxi Zubizarreta

Iskanbilak **erakarrita**, etxeen artetik zenbait auzokide agertu ziren, eskuetan lanabesak zekartzatela. Joanes Urkixo

Oroz gainetik, loriak ditu **erakartzen** hoberenak, dio Zizeronek. Piarres Xarriton

Ezin eutsizko indarrez **erakartzen** baininduten, zirrara bitxi, bortitz, berri bat eragiten zidaten, inoiz bizi izandako, agian oraindik ere bizi ziren, begi pintatu haiek. Josu Zabaleta

Nobelagile eta poetenganako begirune handia erakusten zuen, baina ez zituen irakurtzen, eta mundu honetan **erakartzen** zuten gauza bakarrak hirigintza, psikoanalisia, filosofia eta erlijioa ziren. Fernando Rey

Espero dut laburpenaren bigarren zatiaren irakurle batzuk jatorrizkoan murgiltzera **erakarriak** sentitzea. Iñaki Mendiguren

Erakusten ari zitzaidan dokumentuak **erakarri** ninduen. Edorta Jimenez

Arrazoi askok **erakarri** ninduten lantegi horretara. Koldo Zuazo

Haren santutasunaren usain gozoak **erakarrita**, Jainkoaganako begirunea sortu zuen barruan. Askoren artean

4 (zerbaitek zerbait)

Zuhaitz honen baia edo ale gorrixkek txori asko **erakartzen** dute. Pello Zabala

Juditen sandaliak begiak **erakarri** zizkion eta haren edertasunak txoratu. Elizen arteko biblia

Aurrezkiak eta inbertsioak **erakartzeko** konkurrentzia. Koro Navarro

Hirian bazen, hala ere, beste eraikin bat, aurreko biekin lehian zegoena, eta begirada guztiak beregana **erakartzen** zituena: itsasargia! Jon Muñoz

Denen jakin-mina **erakarri** zuten hitz hauek, eta bera seguruago sentitu zen. Joanes Urkixo

Bonbillen argiak eltxo madarikatuak **erakartzen** ditik. Anjel Lertxundi

Ematen zuen auzoak zerua **erakartzen** zuela, argia **erakartzen** zuela, urre zaharraren koloreko iragan bat **erakartzen** zuela, istorio eta kantu zaharren lilura **erakartzen** zuela, urruti-mina **erakartzen** zuela hainbat bizitzen habia izandako auzo txiki abandonatu hark. Anjel Lertxundi

Marrazoak ere etorri ziren odolaren usainak **erakarrita**. Paddy Rekalde

5 (adizlagunekin)

Besotik heldu zion eta eztiki **erakarri** zuen. Patxi Zubizarreta

Eta gauza bitxien ipuinak, aurrekoak bezain gogorrak ez direnak, baina hala ere gogoa biziki **erakartzen** dutenak. Josu Zabaleta

Terni, aldiz, oker ez banaiz, ez zen inondik inora malenkoniatsua: toki hustu edo utziek eta isilek ez zuten bereziki **erakartzen**, eta ez zuen bakarkako paseo malenkoniatsurik egiten. Fernando Rey

batuen erakundera (6); **bi erakundeok** (13); **erakundetako ordezkariak** (9); **erakundetako ordezkariek** (9); **erakundetik kanpo** (9); **eskubideen aldeko erakundeko** (7); **esportatzaileen erakundeko** (13); **estatuen erakundeko** (10); **eta erakundeko** (9); **eta erakunderen** (8); **eta erakundetako** (6); **eta kooperaziorako erakundeko** (6); **euskal erakundeko** (6); **euskal kultur erakundeko** (40); **euskal kultur erakundera** (7); **fata erakundeko** (8); **gazte erakundeko** (8); **gobernuz kanpoko erakundeko** (28); **hainbat erakunderekin** (12); **hainbat erakunderen** (20); **hainbat erakunderi** (9); **hainbat erakundetako** (11); **hainbat erakundetan** (6); **hamas erakundeko** (16); **islamikoa erakundeko** (11); **jihad islamikoa erakundeko** (11); **kaeda erakundeko** (21); **kanpoko erakundeko** (28); **kooperaziorako erakundeko** (6); **kultur erakundeko** (42); **kultur erakundera** (7); **merkataritza erakundeko** (8); **mundu erakundeko** (37); **mundu erakundeko ome** (11); **munduko merkataritza erakundeko** (8); **nazio batuen erakundeko** (442); **nazio batuen erakundera** (6); **nazioarteko erakundeko** (51); **osasunaren mundu erakundeko** (9); **osasunerako mundu erakundeko** (26); **palestina askatzeko erakundeko** (33); **petrolio esportatzaileen erakundeko** (13); **zenbait erakunderen** (6); **zuen atzo erakundeko** (8); **zuen erakundeko** (13)

---

erakundeburu *iz* erakunde bateko burua.

Mikel Antza eta Soledad Iparagirre, ETA **erakundeburu** ekarriak, arrastatuak izan ziren joanden azaroan Saliesen. Herria

Baionan, Kontseilu jeneral edo orokorraren egoitzan, gerokoaz zuen gehienik axola, Euskararen Erakunde Publikoa kudeatzen dutenekin mintzatuz, batzuk eta bestek elgarren berri hobeki jakiteko gisan, Max Brisson **erakundeburuarekin** bereziki. Herria

---

erakundetu, erakunde(tu), erakundetzen da/du *ad* erakunde bihurtu.

Israeldarrek tinkotasuna eman nahi diote bere herriari, **erakundetu** eta jarraipena ziurtatu; eta horretarako errege bat izendatzea eskatzen diote Samueli, azken epaile handiari. Jose Antonio Mujika

Horrela, apurka eta azpitik, unibertsitarioon arteko lankidetza sareak sortuko dira eta, eta egoera politikoak bidea irekitzen dienean bakarrik, **erakundetu** ahal izango dira harreman horiek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Galian, non koloka zegoen erregimen inperial bat jende gorenaren aldizkako eskualde-batzarrak **erakundetuz** tokian tokiko laguntzaren oinarri berriaren gainean bere burua birgaitzen saiatua baitzen, [...]. Iñaki Mendiguren

1926an Gomes da Costa jeneralak abiatutako eta 1933an Oliveira Salazarrek **erakundetutako** diktaduraren buruzagitzaren lekukoa hartua zuen Caetanok. Berria - Mundua

---

erakundetzaile *izond* erakundetzen duena.

Hau izan zen gizartearen ideia **erakundetzailea**, eta lehen helburu hau beti mantendu da, zinez edo itxurakeriaz, kode guztien buruan, baita suntsitzaileetan ere. Juan Martin Elexpuru

---

erakundetze *iz* erakunde bihurtzea.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren **erakundetzea** sustatzeko batzordea. Berria - Harian

Gure historialari nazionala, deitu zaion moduan, herri honen **erakundetzean** sarri saiatua izan da, UEUn, euskalgintzan, hezkuntzan eta politikagintzan. Berria - Kultura

Manexek egindako lan ugari eta zorrotzetatik harago Euskal Herriaren **erakundetzerako** ahaleginak azpimarratu nahi nituzke. Berria - Kultura

Euskal nazioaren **erakundetzeari** begira, osagai garrantzitsua izango litzateke elkarlan hori. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azalduko al didazu norantz doan populuaren kolektiboen **erakundetze** orokorra eta haien indarren pilaketaren prozesu etengabekoa? Josetxo Azkona

Teknologia eta ezagumenduen transferentzia ahalbidetu; alor bakoitzeko erakundeetatik jaso eta euren **erakundetze** lanetan lagundu. Berria - Harian

Ezin dugu inolaz ere kontent egon gure nazio **erakundetze** mailarekin, xumea eta osatu gabea baita, zatitua, eta gure herri identitatearen zatikatzailea. Berria - Harian

Nazio **erakundetzea** bermatzeko batzordea. Berria - Harian

---

erakunte ik **erakunde**.

---

erakuntza *iz* eratzea.

Bata bestearen alboan biziko diren bi estaturen **erakuntza** lortzeko. Berria - Mundua

Gorputzaren beraren **erakuntza** agerian jartzean eta ez kanpo-gorputzen izatasuna, afekzioen ideiak ez dute gorputzen egiazko izatasunera iristeko ahalbiderik eskaintzen. Piarres Xarriton

Filosofiarako irispidea gizakiari "inmanentziaren plano orokorrekoa" izatearen indarrez dagokion **erakuntzatik** soilik uler daiteke. Piarres Xarriton

Argin-maisuak [...] bere esanetara ikasle eta langile asko dauzka; bera zuzenean ez da ari lanean, gutxitan agertzen da lantegian, berehala zirriborrotzen du egintzaren plangintza eta **erakuntza**, gero bakoitzak bete beharko duena. Joan Mari Lekuona

Hortik dator Aristotolesen esana: hizkuntzaren **erakuntza** gaia agortzen denean bukatzen dela, ez egitura ixten delakotz, eta haren iritziz, nekosoago omen da, irakurleak ez baititu argitasunez ikusten kontaeraren batasun desberdinak. Patziku Perurena

Bihar hastekoa den Kontseilu Nazionalaren **erakuntzarako** konferentzia planeatu bezala aste honetan egingo dela. Berria - Mundua

Zientzia definizioz da elitista, diote horiek, eta ez dago espezializazio eta **erakuntza** berezia eskatzen duen jarduera demokratizatzerik. Askoren artean

Zientzia eta teknologiaren garapena izan daiteke, agian, gizakiak egin duen kultura **erakuntzarik** handiena. Pello Salaburu

---

erakurtzaile ik **irakurtzaile**.

---

erakusaldi ik **erakustaldi**.

---

erakusbide *iz* zerbait erakusteko bidea. ik **irakasbide**.

Froga [...]: egia izateko gezurra izateko baino probabilitate izpi bat gehiago duen **erakusbidea**. Xabier Olarra

Horra nola iragan ziren greziarrak **erakusbidetik** frogabidera. Jon Muñoz

Baita edozein erakusaldi ere **erakusbidean** jartzen diozuna. Juan Garzia

Sorrera on pixka bat badu bere liburuak, **erakusbiderik** ere bai zerbait, baina ezeren bukaerarik gabe. Patxi Ezkiaga

Erakusbide ona dira orrialde horiek, erakutsi edo gogorarazi egiten baitute. Isabel Arrigain

Beste senideentzako **erakusbide** txarra izango zela. Gotzon Garate

Ba ote eboluzioaren froga eta **erakusbide** hoberik hori baino? Juan Garzia

Malthusen ideien **erakusbide** praktikoenetako bat Judeako Herodes izan zen, nahiz eta soldadu ospetsu guztiak pentsaera berdinekoak izan diren. Xabier Olarra

Erakusbide polita izan daiteke etorkizunari begira, azken finean, gaizki hasten dena ez delako derrigor gaizki amaitzen. Berria - Kirola

Jakina sortzen duela, baina hori Elizak bere baitan duen aniztasunaren **erakusbide** argia da. Berria - Euskal Herria

Erakusbide harrigarri horrek -ukitzeari esker ikusi ahal izateak, alegia- txunditurik nindukan beste zerbait ere argitzen zuen. Xabier Olarra

Maitasunaren arnas eta **erakusbide** korrontea. Jenaro Garate

---

erakusburu *iz* erakusgarria.

Honatx jarritako berrogeita zortzi bertsoetatik bi **erakusburutarako**. Berria - Kultura

---

erakusgai **1** *iz* erakusten den gauza. ik **irakasgai**.

Dagorretenean ziren **erakusgaiak** hor dira osoki: laborantza, artzaintza, euskal etxea bere sukalde ezkaratz eta ganberarekin. Herria

Hemen Aezkoako euskalkiaren **erakusgai** bat baizik ez dugu ezarri, irakurlea ohar dadin gure euskara maitea euskalkiz aberats dela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

1.200 **erakusgai** baitira erakustoki honetan, hautu bat egin behar zen. Herria

Liburu horretan, beste anitz **erakusgairen** artean, honako hauek datoz galai eta dontzeilen ikasgai. J.M. Olaizola "Txiliku"

Presaka gabiltzan irratigintzan ezin da pentsatu ere egin honelako **erakusgai** batean. Pello Zabala

Arkitekturako adibideen **erakusgaiak** dira, kasurik muturrenekoetan esplikaziozko testurik gabe ere erraz ager daitezkeenak. Santiago Iruretagoiena

Eska ezazu **erakusgai** bat doan. Patxi Zubizarreta

Zenbaiten aburuz arazo hori omen da Erdi Aroko filosofiak duen **erakusgai** nagusia. Askoren artean

2 (adizlagun gisa)

Udaletxean **erakusgai** jarri zituzten planoak aztertu zituenean, jakin zuen sei erraileko autobide hura bere landetxearen erdi-erditik igarotzen zela. Eskarne Mujika

Ez zion galarazten leihoan bere burua **erakusgai** jartzea, begiak ikatz-margoz belzturik, masailak berun-zuriztaturik. Juan Garzia

Guanes Etchegarayartistak bere obrak **erakusgai** ezarri ditu Arbonako Andereseroraenean. Herria

Ezkaratzetako uraza saltzaileak eta espaloietan **erakusgai** paraturiko toska arruntak aztertzen zituela. Karlos Zabala

Esan nion neure zein inoren gertakari bila nenbilela, gero liburu batean **erakusgai** ipintzeko. Juan Garzia

Eta drogerian, **erakusgai**, maniki bat, emakume gazte baten iztergaina tamaina naturalean. Fernando Rey

Etxeak giza itxurako ageri ziren, ironia maltzurraren **erakusgai**, etxeak eta biztanleak, batak zein besteak, patuaren beraren mende zeudela eta zorigaitzeko ekaitz berak harrapatu zituela aldarrika. Felipe Juaristi

Urteak aurrera joan ahala, Harryk eta bere anaia mamuek garai hartako joera eta gustu guztietako lanak jarri zituzten **erakusgai**. Oskar Arana

Bost zapata pare atera zituen handik, eta egunkari orrien gainean ipini, gelaren bazter batean, **erakusgai**. Juan Kruz Igerabide

3 ***erakusgai egon***

Euskal Etxean daude mahai batean bere egurlanak **erakusgai**. Pako Aristi

Inguruetan, Europako herrialdeetan eginiko argazkiak daude **erakusgai**. Berria - Mundua

Sena gaineko espaloian daude **erakusgai** liburuak; eskuinaldeko ertzetik datorren automobil-saldoak bereizten dituela, berriz, animaliak. Jon Muñoz

Euritakoek daukate arrakasta handiena, baina gura beste oihal eta arropa dago **erakusgai**, tanga ñimiñoenetik neguko jertse lodienera. Urtzi Urrutikoetxea

Erakusleiho batean koadroak, gaztaina-koloreko tapizak eta antigoaleko aulki bernizatuak **erakusgai** zeuden, kristalen atzean. Lopez de Arana

Aurkikuntza guztiak elkarrekin erakusten diren lehendabiziko aldia da, nahiz eta aurrez horietako batzuk **erakusgai** egon diren partzialki. Berria - Kultura

Berriki deskubritutako koadroa behin baino ez da egon jendaurrean **erakusgai**, Londresen, 1934an. Berria - Kultura

4 ***erakusgai izan*** da/du *ad*

14 krexa handi baziren **erakusgai** Santa Eukeniako elizapean, bai-eta ere Claude Iruretagoienak prestatu zazpi probintzietako dantza jauntzi ederrak. Herria

Donostiako San Telmo museoan **erakusgai** izanen dira Jean Dieuzaide argazkilariaren 300 pieza, ipar eta hegoaldea erakusten dute duela 40 urte eta berdin gaur egun. Herria

Arrainak eta okelak dituzte **erakusgai**. Edorta Jimenez

Duela bi urte, Moulins-Gémeaux kalezuloaren eta Tournebride karrikaren arteko izkinan, dendatxo lotsagabe batek **erakusgai** zuen, artean ere, Tu-pu-nez, intsektuak hiltzeko produktuaren iragarki bat. Monika Etxebarria

Bilboko Arte Eder Museoak **erakusgai** izango ditu irailaren 19a arte XIX. mendean Frantzian izan zen mugimendu artistikoa adierazten duten laurogei obra. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
dituzte erakusgai (3); **erakusgai dira** (3); **erakusgai jarri** (8); **erakusgai jarriko** (3); **lan erakusgai** (3); **lan erakusgai jarri** (3); **obrak erakusgai** (4)

---

erakusgailu *iz* zerbait erakusten den gailua.

Baina postalen **erakusgailuan** geratuko zara. Joseba Sarrionandia

Eta, geroxeago egiaztatu dudanez, euskal astekari eta hilabetekari mordo bat; **erakusgailuan** hautagarri. Txillardegi

---

erakusgarri *(309 agerraldi, 84 liburu eta 145 artikulutan; ETCn 4.273 agerraldi)* **1** *iz/izond* aipatzen dena erakusten duena.

Krisi honen **erakusgarriak** ondo ezagunak dira: langabezia izugarri hazi da Mendebaldeko Europan, orobat hazi da pobretasuna Atlantikoaren bi aldeetan, finantzak mundu industrializatu osoan desarautu dira eta diru-egongaiztasuna zabaldu da, [...]. Koro Navarro

Hor dago elkarren ezagumenaren adibidea eta borondate onaren eta duda ezinezkoaren **erakusgarria**. Edorta Jimenez

Osagai-egitura hutsezko ereduen desegokitasunaren hirugarren **erakusgarria** aktibo-pasibo harremana dugu. Itziar Laka

Hiri honetako historian inoiz ezagutu den kultura liberal hoberenaren **erakusgarria** da Gabilondo. Askoren artean

Harreman horren **erakusgarrietako** bat saunak dira; hotel, leku publiko eta etxe anitzetan daude, beren kulturaren ezaugarri garrantzitsuak dira. Berria - Mundua

Tatuajea yakuza taldeei lotutako **erakusgarria** zen. Javi Cillero

Ernamuin horiek berpizkunde-mota bat dira, Txikia erabat hil ez delako **erakusgarria**. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurra zanpatua zegoen, sasiak hautsiak zeuden, eta nonahi ageri ziren borrokaldi gogor baten **erakusgarriak**. Elizen arteko biblia

Gogoeta egin dezagun orain 'borrokaldiaren **erakusgarri'** horiez, eta pentsa dezagun zer iradokitzen duten. Koro Navarro

Hori giza aferetan zorteak duen aparteko garrantziaren beste **erakusgarri** bat baino ez duk. Lopez de Arana

Horren adibide ugari dago muduan, historiak berak horren **erakusgarri** asko eskaintzen dizkigu. Jose Morales

Ingelesaren egitura ikuspuntu formaldatzaile batetik jorratzen dugunean, *be* "izan" eta *have* "ukan" elementuen jokabide hau sakoneko erregulartasunaren **erakusgarri** bihurtzen da. Itziar Laka

Gerra aurrean, Pizkundean, poesia hartzen zen jakintzaren **erakusgarritzat** eta genero gorengotzat. Ana Urkiza

Lauaxetaren atxiloketa gerrak hartua zuen bidearen **erakusgarri** begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

Erresumin horren **erakusgarri** izan litezke euskaraz idatzi nituen hiru artikuluak, aldizkari osoko bakarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Gorputzaren kontrola ez zen erabatekoa, eta horren **erakusgarri** zen, esate baterako, oin batek lurraren kontra joz egiten zuen etengabeko tapa-tapa hotsa. Xabier Mendiguren Elizegi

Alabaina, Selim Aluanek ez zion gizon zoriontsua izateari utzi, eta horren **erakusgarri** ziren bere begitarte bete gorrizta, gorputz sendoa eta bizitasun oparoa. Patxi Zubizarreta

Gizabanakoaren bertuterik gorenaren **erakusgarri** diren aiurrietara hurbiltzen den idazlea. Jose Morales

Nago, ostera, horrelako hizkerak sortzea eta erabiltzea hizkuntzaren osasun onaren ezaugarri eta **erakusgarri** direla. Koldo Zuazo

Gure onespenaren **erakusgarri**, to urrezko mozorro hau. Juan Garzia

Amaren irriari are irri zabalago batekin ihardetsi zion aita Bartolomek, bere satisfazionearen **erakusgarri**. Joan Mari Irigoien

Kontseilu bat eman zidan, bere zuhurtziaren **erakusgarri**: [...]. Joan Mari Irigoien

Gertaera bat kontatu zien bide batez, Txitxikoven trebetasun ezohikoaren **erakusgarri**: [...]. Jose Morales

Bidexkaren eskuin-ezker, mota guztietako sasiak, abandonoaren **erakusgarri**. Jokin Muñoz

Hildako horiek ez dira, beharbada, berebiziko erresistentzia baten **erakusgarri**. Josu Zabaleta

Hortxe dago, **erakusgarri**, J. García Mercadal idazle madrildarrak 1927an excursio zaleentzat argitaratu zuen liburua. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

FOIA delakoak eman dezakeenaren **erakusgarri** egokia da-eta, tartetxo bat merezi du. Edorta Jimenez

Horrenbesterainokoa salbuespena da, bistan da, baina egoeraren **erakusgarri** xumea ere bada aldi berean. Pello Salaburu

Alaitasun hau bakearen **erakusgarri** gorena da, Kemalen lan guztiaren adierazgarria. Fernando Rey

Andreen kontrako erasoa, tratamendu diferente horren **erakusgarri** kezkagarrien eta gogorrena, da XXI. mende hasiera honetan munduan dagoen lakra horietako bat. Pello Salaburu

Liburuak amerikar senaren, arimaren **erakusgarri** zorrotz baina ez-fidela izan behar zuela. Iban Zaldua

Tximino erraldoi bat ikusi zuen, bere ipurdi gainean eserita, jostunen edo turkiarren gisara hankak gurutzatuta, eta bere azkeneko transmigraldian zegoen giza **erakusgarri** bikain haren aurrean, gogoeta sakon batean murgildu zen Héraclius Gloss, pozaren pozez zurbildurik. Josu Zabaleta

Zorakeria zela nire bizitza bezalako huskeriaz arduratzea, Goikoaren ahalmenen **erakusgarri** hain zoragarria ikusteko aukera izanik. Koro Navarro

Zurekiko eta zureekiko konfidantza eta adiskidetasun **erakusgarririk** sutsuenekin. Ramon Etxezarreta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gure pertzepzioa etengabeko **erakusgarri**-hautaketa baten bidez gauzatzen da. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ipini seinaleak bide-**erakusgarri**, begira ongi nondik zoazen. Elizen arteko biblia

Nire bizitza azkeneko urteetan lausotu zuen laino ikusezin eta itsaskorrean, argi apal eta leuneko kriseilu izan nuen Nunu, bide **erakusgarri** beti. Ander Irizar

Nik pentsatu nuen edo gogo-ahulekoa zela oso, edo bestela niganako mendekotasun **erakusgarri** gisa jokatu zuela hala. Karlos Linazasoro

5 (izenondo gisa) erakusten duena.

Mende honen lehen berrogeita hamar urteetako hizkuntza jakintzaren testu **erakusgarria**. Isabel Arrigain

Aitorpen hartatik pasadizo **erakusgarri** batzuk ekarriko ditut hona, nahikoa eta soberakoak izango direnak, zalantza izpirik gabe. Karlos Linazasoro

Zeren mendea bukatzen ari zela, aski **erakusgarria** den pasadizo bat gertatu zen Iruñeko karriketan. Pello Salaburu

Biluzik, eduki praktikorik gabe, haren hitzak **erakusgarriak** eta emankorrak ziren. Fernando Rey

Uharte osoko beste inork baino irudi biziago eta **erakusgarriagoak** egiten zituen. Javi Cillero

6 *erakusgarri izan* du *ad*

Denda handi eta usaintsua, mapetan soilik ageri ziren tokien oroitza gordeta zeukana, urrutiko itsasoetako arrainak eta urrutiko lurraldetako jakiak salgai eta kontinente guztietako gatz klaseak **erakusgarri** zituena. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten erakusgarri (11); **beste erakusgarri** (7); **beste erakusgarri bat** (7); **da horren erakusgarri** (4); **den erakusgarri** (3); **dira horren erakusgarri** (3); **egoeraren erakusgarri** (3); **erakusgarri bat** (10); **erakusgarri bat baino** (3); **erakusgarri bezala** (3); **erakusgarri da** (28); **erakusgarri delako** (3); **erakusgarri dira** (14); **erakusgarri direla** (3); **erakusgarri eta** (5); **erakusgarri ezin** (3); **erakusgarri gisa** (3); **erakusgarri horiek** (3); **erakusgarri izan** (10); **erakusgarri zen** (3); **eta horren erakusgarri** (14); **garrantziaren beste erakusgarri** (4); **gogor baten erakusgarriak** (3); **honen erakusgarri** (4); **horren erakusgarri** (75); **horren erakusgarri da** (17); **horren erakusgarri dira** (4); **horren erakusgarri izan** (5); **horren erakusgarritzat** (6); **lanaren erakusgarri** (5); **onaren erakusgarri** (5); **zuhurtziaren erakusgarri** (3)

---

erakusgela *iz* erakusketa gela.

Hiru panel jarri dituzte **erakusgelan**. Berria - Kultura

Museoko **erakusgela** bat bere «egongela» bilakatu du, «ezkutuko niaren egongela». Berria - Kultura

Iñigo Ormazabal zarauztar margolaria eta Jean-Pierre Indart baigorriar eskultorea, aurtengo gomita bereziek, bien artean osatuko dute **erakusgela** nagusiko bilduma. Herria

Kulturetxeko **erakusgela** handian, lehentze, Anne Broitman-ek agertzen digu "collages" bilduma ttipi bat, bere azken lan eta ausnarketen emaitza. Herria

---

erakusgune *iz* erakusketak egiteko gunea. ik **erakustoki**.

Ortzegunetik larunbaterat, Ortziraletik iganderat, Irunen, Ficoba **erakusgunean**, Bioterra erakusketa. Herria

Egitarauan, erakusketak toki desberdinetan (saltoki, **erakusgune**, leku publiko), karrika animazioak, kontzertuak, artista et publikoen arteko topaketak. Herria

Larunbatean eta igandean, Miarritzen, Bellevue **erakusgunean**, gazteentzat idatzi liburuen azoka. Herria

2002. urtearekin estreinatu zuten **erakusgunea** bi artista lagun ingelesekin, Keith Hill eta Nichollas Hamperrekin. Berria - Kultura

150 artixta baziren gisa hortan elgarretaratuak dotzena bat **erakusgunetan** beren obrak agertuz, gehienak margoak. Herria

---

erakuskari *iz* zerbait ezagutzeko, bertatik erakusten den zati edo kopuru txikia. ik **mostra**.

Horren **erakuskari** genuke, ziurrenik Anderrek, haur gasteiztar-legorretarrak, 3,8 urterekin egiten zituen ordezkatzeak: esaterako, gurasoen *police Špolite* ahoskatzen zuenean, edo *utzi dicut Š utzi ditut* bihurtzen zenean beraren ahoskeran. Lourdes Oñederra

---

erakuskeria *iz* erakuste gaitzesgarria.

Gure Mogueime beldur zen Ouroana konkistatzeko esperantza galduko ote zuen, baldin eta edozein aitoren semek, **erakuskeriaz** edo apetaz, edo sentimendu serioago baina aldi berean iraunkortasunik gabeaz, beretzat hartzen bazuen. Jon Alonso

Funtsean, Hilm, arabiar tasun gehienak bezala, arrandia eta **erakuskeriazko** bertute bat da, benetako mami baino nabarmenkeria handiagoarekin. Iñaki Mendiguren

Hori, giza eskalan, akrobazia ironiko bat da, txerpolari-txantxa bat, guztiahalduntasun-larderiazko **erakuskeria** ulertezin bat. Juan Garzia

Andresek muzinez biratzen zuen burua, aitaren zinismo-**erakuskeria** haiek barregarriak eta lekuz kanpokoak iruditzen zitzaizkiola aditzera emanez. Josu Zabaleta

---

erakusketa 1 *iz* erakustea, eskuarki arte lanak edo ekoizpenak erakusteko jendaurrean egiten dena.

Bere oroimen preteritoaren **erakusketarik** egin gabe aldatuko du gaia Andonik. Joseba Sarrionandia

Oraintxe nator Porta de Ferrotik, zoritxarren eta miserien **erakusketa** bat bezalakoa da, medikuek ez dakite nondik hasi. Jon Alonso

1991ko martxoan, Francoren margolanen bigarren **erakusketa** egin zen Italian. Xabier Olarra

Zezen-plazan ibilgailu ekologikoen **erakusketa** eginen dute. Berria - Euskal Herria

Euskaltegiak **erakusketa** bat prestatu du lanean emandako 15 urteak islatzeko asmotan. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko margolari batzuen **erakusketa** antolatzen ari zelako, eta ilusio handia egiten ziola. Ramon Saizarbitoria

Erakusketa bat antolatu dute frontoi horretan ospatu diren ekitaldi garrantzitsu guztien berri emanez (kirol, politika eta kultur arlokoak). Berria - Kirola

Haren margolanen **erakusketa** bat antolatu zuen, 1990eko irailean zabaltzekoa zena. Xabier Olarra

Josuk **erakusketa** bat inauguratzen du bihar. Iban Zaldua

Suak erakusgela bera eta **erakusketaren** zati bat hunkitu dituenez, ezinezkoa da **erakusketaren** publikoari idekitzea momentuz. Herria

Erakusketaren zuzendariak eta bertako enplegatuek destaina ergelez hartu ninduten. Juan Garzia

1976ko **erakusketaren** arrakastaren ondoren (bigarren astearen amaierarako saldurik zegoen guzti-guztia, hamazazpi margolan eta hogeita hamaika marrazki), Smith-ek alde egin zuen hiritik. Oskar Arana

"Oroimen-artista"tzat aurkezten zuten Magnani, eta nahikoa zen begirada bat ematea **erakusketari**, oroimen miragarria zuela ohartzeko. Xabier Olarra

Bihar goizean Edward Munch-en **erakusketa** batera joango gaitun, Ixelles-ko museora. Iban Zaldua

1990ean Pompidou Zentroan egin zen *Passages de l'image* **erakusketan**, Thierry Kuntzel-en piezak irudi erraldoi bat eta irudi ñimiño bat elkartzen zituen. Josu Zabaleta

Hilabetera, **erakusketa** saltoki bihurtu zen eta artea salgai jarri zuen artista ohiak. Jasone Osoro

Erakusketa hau ikusgai da martxoaren 27a arte, egun guziz 10etarik 19ak arte, igandetan salbu. Herria

34 herrialdetako 1.894 enpresek hartuko dute parte makina-erremintako **erakusketan**. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bilduma honetan, ipuinak ardatz, Borgesen prosalanaren **erakusketa** zabal bat osatu nahi izan da. Juan Garzia

1900eko **Erakusketa** Unibertsal handirako eraiki zuten jauregia. Jon Muñoz

Hura zen 1937ko Nazioarteko **Erakusketako** gauza erakargarrietariko bat. Jon Muñoz

Egun on batean, jaun zaharrari otu zitzaion handikiak bezala zalgurdian joan behar zuela parkera, **erakusketa** militarra ikustera. Irene Aldasoro

Txinako gizarte-bizitzaren gainaldera irteteko, non sekula ez baitzuen aukerarik izan bere bizitasunaren **erakusketa** harrigarria egiteko konfuziar pentsaerako funtzionarioek kultur arloan zertu zuten gobernu zapaltzailearen pean. Iñaki Mendiguren

Horrek **erakusketa** handia baino lehenago aritzeko denbora emango die. Ramon Etxezarreta

Erakusketa iraunkorreko geletatik paseatzen ari nintzela, izkina ez oso argitsu batean, atentzioa eman zidan koadro bat ikusi nuen. Iban Zaldua

Euskal Kultur Erakundearen KANTUKETAN **erakusketa** soinuduna Baionan ikusten ahalko da, Gaztelu Berrian. Herria

Harribitxi bat; balio literario jakinez gain, mundu zahar baten osoko **erakusketa**. Askoren artean

Aurtengo **erakusketan** 70 herrialdetako enpresek hartuko dute parte eta 120 herrialdetako 30.000 bisitari baino gehiago espero dituzte. Berria - Mundua

Aldi baterako **erakusketak** bi solairutan jarriko dira pabiloi berri horretan. Berria - Harian

Motherwellen atzera begirako **erakusketa** batean geundela zirudien. Patxi Iturritegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

600 aparkaleku gehiago egongo dira, eta kanpoko **erakusketa** eremua 6.500 metro koadrotan handituko da. Berria - Ekonomia

Goi bilerako ekitaldi ofizialak Argentinako Nekazaritza Elkartearen **erakusketa** aretoan ari dira egiten. Berria - Gaiak

Erakusketa hau ikusgai da agorrilaren 21 a arte, Herriko Etxeko **erakusketa** gelan. Herria

FIAT edo Fabbrica italiana automobili Torino: Giovanni Agnellik orain ehun urte Torinoko auzo batean sortu zuen fabrika, **erakusketa**-azoka erraldoi bat da orain. Anjel Lertxundi

Alemanian eta Finlandian badaude horrelako **erakusketa** guneak. Berria - Ekonomia

Kanpoko hotz handiaren eta barruko tenperatura beroaren arteko aldeak zerikusirik izatea aipatu da, baita **erakusketa** lekuan jotzen zen musikak eragindako dardarizoek ere. Berria - Mundua

Erakusketa zentroen bitartez, istripuak saihesteko kultura piztu nahi dugu. Berria - Ekonomia

Aintzinako etxeko egituratik eskailera horiek gorde dituzte; etxea lau solairukoa zen; orain sei **erakusketa**-solairu atondu dituzte, arranpen bidez lotuak. Edorta Jimenez

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Apirilaren 8an izango da aurre-**erakusketa** hori, Donostian, Gazteszena aretoan. Berria - Kultura

Indar **erakusketen** aurrean baizik ez dutela amore ematen. Itxaro Borda

Lepic andrearen izaera erabat teatrala da, haren jokamoldean eta hitz egiteko moduan ezusteko kolpeak, gehiegikeriak, bat-bateko umore aldaketak, botere **erakusketak** eta azpikeriak nagusitzen dira. Itziar Otegi

Ospakizun horietako batzuk Itsasoko Historia **Erakusketa**, Euskal Lore Jokoak eta hiriaren historia literarioko lehiaketa bat izan ziren. Askoren artean

Ziburun, Bordagaineko dorrean muntatu poteria eta margo **erakusketak** arrakasta gaitza ukan du. Herria

Moda **erakusketetan** eta pasareletan. Anjel Lertxundi

Amaginarrebaren gutun bat, pintura-**erakusketa** baterako gonbitea, oporretan joan diren adiskide batzuen postal bat. Eskarne Mujika

Lasarten berriki izan den zakur-**erakusketan** 900 zakurretarik 60 rottweiler ziren. Gotzon Garate

Beste batzuek betazalak ñarrotu dituzte eta irri egiteko gogo izugarriari eusten diotela dirudi, zauri **erakusketa** bat da, euliek zanpa-zanpa jaten duten zauri irekien **erakusketa**. Jon Alonso

Kontrolik gabeko erudizio-**erakusketek** zaildu egiten dute irakurketa eta argudioari ez diote onik egiten. Askoren artean

Grabatu edo litografia **erakusketek**, aldiz, ez diete halako graziarik egiten. Bernardo Atxaga

Eskolak pintura **erakusketa** bat antolatu zuen; nire koadrorik onenetako batzuk eraman nituen. Juan Kruz Igerabide

Arla Foodsek karikaturen aurkako kartelak jarriko ditu Dubain, gaur hasiko den Golkoko elikagai **erakusketan**. Berria - Mundua

Aurten ere gaitzeko itsas-**erakusketa** izanen da Hendaian. Herria

Argazki **erakusketetan** argazki handiak izaten dira askotan, koadroaren antz handiagoa dutenak, nortasun-agiriko argazkiarenak baino. Josu Zabaleta

Katu-**erakusketa** batean ezagutu zuen Virgil, 1968an. Xabier Olarra

Hannoverko Mundu **Erakusketan** Mongoliaren gunean izan ginen. Edorta Jimenez

Ezkiaga pasealekuan albokagileen azoka-**erakusketa** jarriko dute. Berria - Kultura

Tony Grady «artista eusko-ingeles sailkaezinaren» instalazio-**erakusketa** batean oinarrituta. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

antolatutako erakusketa (7); **argazki erakusketa** (63); **argazki erakusketa bat** (18); **arte erakusketa** (9); **arteari buruzko erakusketa** (5); **artisten erakusketa** (5); **atzera begirako erakusketa** (16); **baina erakusketa** (7); **bat erakusketa** (6); **begirako erakusketa** (16); **beste erakusketa** (19); **beste erakusketa bat** (12); **bi erakusketa** (16); **bigarren erakusketa** (6); **biltzen dituen erakusketa** (8); **buruzko erakusketa** (92); **buruzko erakusketa bat** (12); **buruzko erakusketa ikusi** (6); **da erakusketa** (74); **da erakusketa hau** (8); **dagoen erakusketa** (11); **den erakusketa** (27); **dira erakusketa** (9); **diren erakusketa** (8); **ditu erakusketa** (9); **dituen erakusketa** (19); **dituen erakusketa zabaldu** (5); **dituzte erakusketa** (10); **du erakusketa** (27); **duen erakusketa** (40); **duen erakusketa zabaldu** (8); **dute erakusketa** (41); **ederlan erakusketa** (5); **edo erakusketa** (6)

erakusketa antolatu (27); **erakusketa antolatu du** (12); **erakusketa antolatuko** (8); **erakusketa antolatzeko** (10); **erakusketa antolatzen** (5); **erakusketa antologikoa** (8); **erakusketa areto** (6); **erakusketa aretoa** (5); **erakusketa aretoak** (5); **erakusketa aretoan** (11); **erakusketa aretoetan** (5); **erakusketa arraroa** (6); **erakusketa bat** (226); **erakusketa bat antolatu** (9); **erakusketa bat antolatua** (6); **erakusketa bat antolatzeko** (5); **erakusketa bat antolatzen** (5); **erakusketa bat bada** (6); **erakusketa bat da** (5); **erakusketa bat egin** (5); **erakusketa bat ere** (17); **erakusketa bat gaitza** (5); **erakusketa bat izanen** (7); **erakusketa bat muntatua** (6); **erakusketa batean** (31); **erakusketa batean parte** (5); **erakusketa batek** (14); **erakusketa batekin** (8); **erakusketa bateko** (6); **erakusketa bateko koadroak** (6); **erakusketa baten** (16); **erakusketa baterako** (7); **erakusketa bati** (5); **erakusketa batzu** (15); **erakusketa bera** (9); **erakusketa berezi** (40); **erakusketa berezi bat** (35); **erakusketa berezia** (12); **erakusketa bi** (7); **erakusketa da** (15); **erakusketa dago** (5); **erakusketa dela** (11); **erakusketa eder** (11); **erakusketa eder bat** (10); **erakusketa ederra** (13); **erakusketa ederra eta** (5); **erakusketa egin** (22); **erakusketa egingo** (7); **erakusketa egiteko** (7); **erakusketa egongo** (5); **erakusketa egun** (7); **erakusketa ere** (12)

erakusketa eta (65); **erakusketa eta ikusgarri** (5); **erakusketa eta mintzaldi** (5); **erakusketa euskal** (7); **erakusketa ez** (9); **erakusketa gela** (5); **erakusketa gunean** (5); **erakusketa handi** (11); **erakusketa handi bat** (6); **erakusketa handia** (12); **erakusketa hau** (47); **erakusketa herriko** (7); **erakusketa honek** (7); **erakusketa honen** (6); **erakusketa honetan** (26); **erakusketa hori** (46); **erakusketa horiek** (5); **erakusketa horrek** (8); **erakusketa horren** (20); **erakusketa horretan** (5); **erakusketa hortan** (16); **erakusketa hunen** (9); **erakusketa hunen estrena** (5); **erakusketa huntan** (5); **erakusketa ibiltari** (5); **erakusketa ibiltaria** (14); **erakusketa idekia** (8); **erakusketa ikusgai** (16); **erakusketa ikusi** (22); **erakusketa ikusi ondoren** (9); **erakusketa ikusteko** (8); **erakusketa ikusteko aukera** (5); **erakusketa ikusten** (6); **erakusketa ikustera** (5); **erakusketa inauguratuko** (6); **erakusketa irekiko** (5); **erakusketa ixteko** (6); **erakusketa izan** (9); **erakusketa izan da** (5); **erakusketa izanen** (8); **erakusketa izanen da** (7); **erakusketa izango** (6); **erakusketa izango da** (6); **erakusketa izuran** (7); **erakusketa jarri** (16); **erakusketa jarri du** (7); **erakusketa jarri dute** (7); **erakusketa jarriko** (7); **erakusketa jarriko dute** (6); **erakusketa nagusia** (12); **erakusketa osatzeko** (6); **erakusketa osatzen** (7); **erakusketa osatzen duten** (6); **erakusketa oso** (6); **erakusketa paratu** (10); **erakusketa zabala** (9); **erakusketa zabaldu** (48); **erakusketa zabaldu du** (8); **erakusketa zabaldu dute** (22); **erakusketa zabaldu zuten** (6); **erakusketa zabalduko** (14); **erakusketa zabalduko du** (5); **erakusketa zabalduko dute** (6); **erakusketa zabalik** (8)

ere erakusketa (7); **eskainitako erakusketa** (7); **eskulan erakusketa** (6); **eta erakusketa** (71); **feria erakusketa** (19); **feria erakusketa hori** (5); **gaitzeko erakusketa** (14); **hainbat erakusketa** (12); **hiru erakusketa** (11); **horregatik erakusketa** (5); **idekia da erakusketa** (5); **ikusgai dagoen erakusketa** (5); **inguruko erakusketa** (15); **inguruko erakusketa bat** (5); **itsas erakusketa** (5); **izan da erakusketa** (5); **izanen da erakusketa** (7); **izeneko erakusketa** (17); **jarritako erakusketa** (5); **kanpoko erakusketa** (5); **kantuketan erakusketa** (20); **koreografia erakusketa** (5); **krexa erakusketa** (5); **lan erakusketa** (5); **lanen erakusketa** (15); **lehen erakusketa** (15); **margo erakusketa** (20); **marrazki erakusketa** (5); **marrazkien erakusketa** (7); **marrazkirri erakusketa** (6); **muntatu erakusketa** (12); **obren erakusketa** (7); **osatutako erakusketa** (7); **osatzen dute erakusketa** (9); **pilota erakusketa** (6); **pintura erakusketa** (5); **ren erakusketa** (6); **sei erakusketa** (7); **uda erakusketa** (22); **udako erakusketa** (5); **zen erakusketa** (7); **zuen erakusketa** (8); **zuten erakusketa** (6)

antolatutako erakusketan (5); **argazki erakusketak** (8); **bilboko erakusketak** (8); **bilboko erakusketan** (6); **da erakusketan** (5); **daude erakusketan** (12); **den erakusketan** (6); **dira erakusketak** (5); **dira erakusketan** (12); **ditu erakusketak** (20); **ditu erakusketan** (7); **dituzte erakusketan** (7); **du erakusketak** (32); **du erakusketako** (7); **duen erakusketak** (11); **duen erakusketan** (11); **duten erakusketak** (5); **ematen du erakusketak** (5); **erakusketak arrakasta** (6); **erakusketak ere** (7); **erakusketak eta** (26); **erakusketak ez** (6); **erakusketak irune** (6); **erakusketak irune berro** (6); **erakusketako komisario** (13); **erakusketako komisarioak** (18); **erakusketako komisarioaren** (5); **erakusketan bildutako** (8); **erakusketan dauden** (8); **erakusketan ikus** (6); **erakusketan jarri** (5); **eta erakusketak** (22); **eta erakusketako** (7); **eta erakusketan** (5); **izeneko erakusketan** (9); **jasotzen ditu erakusketak** (5)

da erakusketaren (19); **dira erakusketaren** (5); **duen erakusketaren** (10); **dute erakusketaren** (6); **erakusketarekin batera** (8); **erakusketaren ardatza** (5); **erakusketaren arduradunak** (5); **erakusketaren aurkezpenean** (6); **erakusketaren bigarren** (6); **erakusketaren estreina** (5); **erakusketaren estreinaldia** (8); **erakusketaren harira** (5); **erakusketaren karietara** (8); **erakusketaren komisarioa** (6); **eta erakusketaren** (8); **eta erakusketari** (5); **zuen erakusketaren** (5)

---

erakusketari *iz* erakusketa batean parte hartzen duen pertsona.

70 **erakusketari** elkartuko dira ostiraletik igandea arte Gipuzkoako Erakustazokan, Euskal Herri osoko lehen azoka ekologikoan. Berria - Euskal Herria

Txundituta daude, uste baino erakargarriagoa delako eraikina, bai **erakusketarientzat**, bai bisitarientzat. Berria - Ekonomia

Leku guztietako **erakusketariak** batzen ditu, bai, baina hemengo enpresak dira azokaren euskarri. Berria - Ekonomia

Ingurumena langai duten enpresentzako azoka da, eta aurten 551 **erakusketari** bildu ditu erakustazoka berrian. Berria - Ekonomia

Inoiz baino bisitari eta **erakusketari** gehiagok parte hartu dute Biurteko Azokan, eta inoiz baino metro koadro gehiago bete dituzte. Berria - Ekonomia

Azkenaldion leku faltagatik baztertutako **erakusketariak** bildu ahalko dira, eta marka guztiak hautsiko ditugu. Berria - Ekonomia

Azkenaldion leku faltagatik baztertutako **erakusketariak** bildu ahalko dira, eta marka guztiak hautsiko ditugu. Berria - Ekonomia

Ansiora joandako «bisitari eta **erakusketari** holdeaz» ohartarazi zuen BECeko kontseilari ordezkariak. Berria - Ekonomia

---

erakusketero *izondo* erakuskeriaren zalea.

Nik ordea, garbi aitortuko dizut, alor guzietako apoeuskaldun funtzionario eta bitartekari parasito horien eraginez ugaltzen ari den jitokomertzio "erakusketero, **espektakulero"** honi gero eta nazka handiagoa diodala; beste nonbaitean sumatu izan baitut betidanik zinezko euskal hazia eta grazia. Patziku Perurena

---

erakuski *adlag* erakusten.

Bada sahats bat errekan gaindi zehar hazia, bere hosto zurixkak ur-ispiluari **erakuski**. Juan Garzia

---

erakusle *izond* hatzez mintzatuz, erpuruaren ondoan dagoena.

Lehen hatza sartu zidan kubatarrak, **erakuslea**, eta orduantxe ohartu nintzen zeinen finak eta luzeak zeuzkan hatzak. Aitor Arana

ik beherago 4. Askoren artean

• **2** *iz* zerbait erakusten duen pertsona.

Bi pabiloi bete dituzte azokara bildutako 559 **erakusleek** %80 handitu da enpresen partaidetza, antolatzaileen arabera. Berria - Ekonomia

90 bat **erakusle** etorri beharrak dira: landare eta lore saltzaile, mota guzietako tresna saltzaile. Herria

120 **erakusle** hurbildu dira beren salgaiekin eta egunak jende anitz erakarri du. Herria

Esan liteke zu izan zaitudala eragile eta **erakusle**, zure gutunetako erretolika gozo horrek ganibeta erabiltzera behartu bainau, esaldi dotoreetan sartu, ebaki eta berben ostean zer ostentzen den ikusteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Piztia erakusketaren jabeak bere morroiaren goraipamen sutsuena egin zion, jakina; basa piztien **erakusle** gisa egindako karrera luze guztian ezagututako animaliarik bizkorren, atseginen, apalen, gozoena huraxe. Josu Zabaleta

Behin, handik zebiltzan gauza bitxien **erakusle** batzuek kume ikaragarri haren berri entzun zuten. Josu Zabaleta

Emakume gazte bat, oso argala bera, belztez jantzita, eta hiru gizon gazte, hiru gizon itxurako, eslabiar arraza peto-petoko **erakusle** hirurak, beltzez jantzita. Felipe Juaristi

Joan den mende hastapenean denbora zail eta latz horietan kopuru haundiko familitan ardura atxemaiten zen hartz **erakusle** bat (montreur d' ours) herriz herri ibiltzen zena hartza“ dantzaraziz” eta eskea eginez Frantzia guzian eta Ameriketaraino batzuentzat. Herria

Emakume guztiz gorrotagarri bat, deabru egiazko bat, urtero, nahita, haur itxuragabeak, nazkagarriak, beldurgarriak, munstroak, hitz batean, egiten dituena, eta gero munstro-**erakusleei** saltzen dizkiena. Josu Zabaleta

Ehizaldiaz ere aritu gintuan, ehiza-**erakusleen** egitekoaz, gure gonbidatuetako batek egindako hutsaz, oreinkume gazteegia hil baitzuen. Xabier Olarra

2 adierazten duena erakusten duen gauza.

Esan ohi da Gorgias elkarrizketa Platonen eskola berriaren **erakuslea** dela. Askoren artean

Hondarribian gertatzen dena emakumeok beste hainbat eremutan jasaten dugun bazterketaren beste **erakusle** bat da. Berria - Harian

Itsas zaldi bat aurkitu dute Tamesis ibaian, eta kutsadura gutxitu den **erakusle** dela esan dute. Horren guztiaren **erakusle** den Braqueren *Biolina* eta paleta margoaz gainera, Fernand Leger, Robert Delaunay, Juan Gris eta Frantisek Kupkaren obrak ere atera ditu argira Guggenheimek. Berria - Gaiak

Biztanleriak Parlamentuan gehiengoa duen alderdia babesten badu presidente ohiak harturiko erabakiak ongi ikusten ez dituelako **erakusle** izango da. Berria - Mundua

Begiak ziren, beren harriduraren **erakusle**. Felipe Juaristi

Fase semantiko berritzaile horren **erakusle** izan dira zapatistek plazaratu dituzten leloak: Den-dena guztiontzat, ezertxo ere ez guretzat. Txema Ramirez de la Piscina

Anfibologia honen zergatiak, moduak eta ondorioak ez dira erraz eredu bakar batera egokitzen, eta adibideek aniztasun horren **erakusle** dira. Iñaki Arranz

Arteari emandako bizitza baten **erakusle** dira brontzez, marmolez, harriz eta egurrez eginiko obrak Trikitixaren historia egiteko orduan, bada ezinbestean garai baten **erakusle** diren erretratuak. Berria - Kultura

Leihotik aldendu eta telebista piztu nuen, arreta pantailan jarri eta nire pentsamenduen gurpila gelditzeko; bestela zaldiko-maldiko bihurtuko zitzaidalakoan, zalapartatsua, figura beti berberen **erakusle**. Manuel Larramendi jesuita andoaindarra (1690-1766) da garai hartako lekukorik esanguratsuenetakoa, eta berak egindako gogoeta iruditzen zait orduko egoeraren **erakuslea**: [...]. Uharteko abertzaleek Parisko gobernuaren jarrera gogorraren **erakusletzat** jo dute izendapena. Bernardo Atxaga

Baita ere arrazoimena nahimenaren eta askatasunaren eragile eta ikerlari edo **erakusle** bakarra. Jenaro Garate

Eskuineko ala ezkerreko politika-ikerlariek onartzen omen dute bortizkeria ez dela boterearen **erakusle** argiena baizik. arriskuak ez dira besterik gabe aplikazio hondarrak, albo-ondorio sekundarioak, gure gizarteen **erakusle** fidelak baizik. Piarres Xarriton

Zoriontasun artifizialaren **erakusle** birtualak dira. Jasone Osoro

Markoak badu halako **erakusle**-balio bat ere, ikusleari irudi bat ikusten ari dela "esaten" diolako. Josu Zabaleta

3 izenordain erakuslea.

Bost multzotan bereiziko ditut: 1) ortografia, 2) deklinabidea, 3) **erakusleak**, 4) maileguzko hitzak, eta 5) bestelakoak. Koldo Zuazo

1979an arautu zen euskara batuko **erakusleen** egitura Dena dela, *-taz* atzizkia ez zen erabat kendu: izenordainetan (nitaz), **erakusleetan** (honetaz) eta galdetzaileetan (zertaz) erabiltzeko utzi zen. Koldo Zuazo

4 hatz erakuslea.

-Borreroak **erakuslea** eraman zuen begira-: Oholtza gainetik neure begiokin ikusia. Anjel Lertxundi

Erakuslearen puntaren zati txiki bat kendu zidaten, infektatua nuelako, eta behealdean ireki egin zidaten, **erakuslea** eta ondokoa, arteriak-eta garbitzeko. Berria - Kirola

Erakuslean eraztun bat zuen, zilarrezkoa, gailurrean kristalezko harria zuena. Lander Garro

Jimmy itsumustuka hasi zen euliaren bila bi atzamarrez, eta behin harrapatu zuenean, erpuruaren eta **erakuslearen** artean zanpatu zuen, nahaski gris bihurtzeraino. Lopez de Arana

Lodiarekin eta **erakuslearekin** igurzten ari zela, laster bost hatzak zituen Egutxi agureak neskatoaren ilearekin jolasean. Ibon Uribarri

Kattalinek kopeta pixka bat beheititzen du, ezkerreko eskuko behatza sudurrari kontra eta **erakuslea** bi bekainen artean ezarriz. Eneko Bidegain

Bost hatzetatik lau loturik geratzen zitzaizkidan erremediorik gabe; **erakuslea** baino ez zen zutitzen tekletarako bideari ekiteko. Joxan Elosegi

5 izenordain erakuslea.

Aditzen ekimen etsigaitza; sustantiboen izate sustraitsua; izenordeen auzolanerako prestutasuna; adjektiboen juzkatzeko grina; atzizki-aurrizkien apaltasun ahaltsua; lokailuen zubi-lana; **erakusle** eta deiktikoen jendetasuna; sintaxiaren herabetasun ezkutuzalea. Joxerra Garzia

6 ***atzamar erakusle*** hatz erakuslea.

Ilea ukitu nahi izan diot eta berak, burua apur bat jiratuz, hortzen artean harrapatu dit **atzamar erakuslea**. Joseba Sarrionandia

Gero, Jimmyri eztiki ukitu zion belauna **atzamar erakusleaz**. Lopez de Arana

Piettkak eta Zbixekek bat-batean, adibidez, euren solasa eten eta **atzamar erakuslea** jasoz guri ere isiltasuna eskatzen digutenean, aurpegi urduriz urrunera zelatan, nire belarriek ere hautematen dute durundi isila. Urtzi Urrutikoetxea

7 ***behatz erakusle*** hatz erakuslea.

Behatz erakuslea bere ezpain bizartsuetan jarri eta keinu batez despedida eman zidan. Matías Múgica

Berak bere **behatz erakuslean** nire ilea kiribildu eta barre egiten zian tarteka. Joxean Agirre

Ez du ikusten bat-batean agertzen **behatz erakusle** erraldoi hori, bilo urreztatuak eguzkitan dirdaika dituena. Monika Etxebarria

Sekulako mina daukat ezkerreko **behatz erakuslean**, eta ezin dut lisaketa egin. Josu Zabaleta

8 ***bide-erakusle*** *izond/iz* bidea erakusten duena.

Gure etxeetako bizi-mailaren aitzindari eta **bide-erakusle** izan zen berea, gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Donostiako parkea **bide erakusle** da teknologia arloan, bai Gipuzkoan bai mundu osoan. Berria - Ekonomia

Ideologoak dira, pentsalariak, pentsamenduaren sortzaileak, **bide-erakusleak**. Iñaki Segurola

Lan bila atera ziren Afrikatik, baina **bide erakusle** zituztenek abandonatu egin zituzten. Iñigo Aranbarri

Zazpi mendez izango zen Alexandria munduko bazter horretako buru-jardunaren argi-emaile eta **bide-erakusle**. Jon Muñoz

Harat iritsi bezain fite, hango jesuitekin harremanetan jarriko nintzela eta haietarik norbait izanen nuela maisu eta bide-**erakusle**-, eta hala egin ninduzun, halaber, zeure adiskide. Joan Mari Irigoien

Bakarrik joango zen, Santutxoko bentako haurra bide-**erakusle**. Inazio Mujika Iraola

Stephenen **bide-erakusle** ibili zen Margaret: "Begiratu ondo eraikin horri, eta aztertu". Xabier Olarra

Planifikazio **bide-erakusle** baten bitartez gauzatzen du bere jarduera. Koro Navarro

9 ***hatz erakusle*** eskuko bigarren hatza, erpuruaren ondoan dagoena.

Haren **hatz erakuslea** nire sudur puztuaren parean luzatu zen. Aingeru Epaltza

Hatz erakusleaz ezpainetan gurutze eginez, mihiaz bertze egiteko agindu zigun. Aingeru Epaltza

Marrubizko pasteltxo bat erpuruaren eta **hatz erakuslearen** artean kulunka erabiliz. Lopez de Arana

Zenbaki zerrendak **hatz erakusleaz** errepasatzen hasiz. Harkaitz Cano

Hatz erakuslean amu bat sartu zaion arrantzalearen bisajearekin. Harkaitz Cano

Luis lurrera begira dago, ezkerreko besoa sabel gainean gurutzatua, bestea luze zintzilik, zigarroa eskuan, **hatz erakusle** eta luzearen artean helduta. Lourdes Oñederra

Hatzak pixka bat bananduta zeuden, hatz txikia betilearen azpian, **hatz erakuslea** ezpainen bila. Ibon Uribarri

Baina zaharrak ez zien entzun ere egiten; **hatz** lodia eta **erakuslea** igurtzi eta: [...]. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten erakusle (5); **bide erakusle** (22); **bide erakusle izan** (3); **da horren erakusle** (6); **dira horren erakusle** (3); **erakusle bat** (3); **erakusle da** (31); **erakusle dela** (10); **erakusle dela esan** (3); **erakusle dira** (20); **erakusle direla** (4); **erakusle diren** (3); **erakusle ere** (3); **erakusle eta** (11); **erakusle gisa** (3); **erakusle izan** (18); **erakusle izan behar** (3); **erakusle izan da** (3); **erakusle izan zen** (6); **erakusle izango** (5); **erakusle izango da** (3); **eta bide erakusle** (6); **eta erakusle** (3); **eta horren erakusle** (6); **ezaren erakusle** (3); **hatz erakusle** (13); **hatz erakusle eta** (4); **horren erakusle** (62); **horren erakusle da** (13); **horren erakusle dira** (12); **horren erakusle izan** (4)

atzamar erakuslea (4); **behatz erakuslean** (3); **bide erakuslea** (3); **du hatz erakuslea** (3); **erakuslea da** (4); **erakuslea eta** (9); **erakuslea ezpainetan** (3); **erakuslea ezpainetara** (3); **erakuslea falta** (3); **erakuslea luzatu** (3); **erakuslearen artean** (6); **erakuslearen eta** (6); **erakuslearen eta erpuruaren** (3); **erakuslearen punta** (3); **erakusletzat jo** (3); **eri erakuslea** (4); **eskuko hatz erakuslean** (3); **eta erakuslea** (9); **eta erakuslearen** (5); **eta erakuslearen artean** (4); **eta hatz erakuslea** (11); **eta hatz erakuslearen** (3); **eta hatz erakusleaz** (6); **hatz erakuslea** (73); **hatz erakuslea eta** (7); **hatz erakuslea ezpainetan** (3); **hatz erakuslea falta** (3); **hatz erakuslea luzatu** (3); **hatz erakusleak** (5); **hatz erakuslean** (7); **hatz erakuslearekin** (11); **hatz erakuslearen** (14); **hatz erakuslearen eta** (4); **hatz erakuslearen punta** (3); **hatz erakusleari** (5); **hatz erakusleaz** (32); **hatz erakusletik** (3); **lodia eta erakuslea** (4); **luzea eta erakuslea** (3); **zuen hatz erakuslea** (4)

---

erakusleiho *iz* dendetan eta kidekoetan, kanpoaldeko leiho modukoa, salgaiak erakusteko erabiltzen dena. ik **erakustegi**.

Metro batzuetara ikusi nuen bigarrena, **erakusleiho** bati begira. Lander Garro

Erakusleiho batean koadroak, gaztaina-koloreko tapizak eta antigoaleko aulki bernizatuak erakusgai zeuden, kristalen atzean. Lopez de Arana

Bere burua aurkituko du munstro, korrikaldian doala, azken behakoan apika, arkupeetako **erakusleiho** batean. Iñaki Iñurrieta

Dendetako **erakusleiho** askotan (gehienetan, esango nuke), beti ere, uste dudanez, apaingarri berak topatzen nituen asteetan eta hilabeteetan barrena. Txillardegi

Erakusleiho batzuetan saguzar-barez eta aingira-begiz beteriko upelak zeuden, sorginkeriari buruzko liburu-pilak zabuka, lumak eta pergamino-erroiluak, edabe-botilak, ilargiaren esferak. Iñaki Mendiguren

Bihotza ahula izaki, **erakusleiho** ongi hornituen sedukzioari ezin gogor egin, eta erosi eta erosi jardun beharra zeukan. Anton Garikano

Itxaroteko eskatu zion eta denda zabalik zegoelako adierazle ziren eragiketa guztiak egin zituen: errotulutxoa itzulbiratu, pertsianak jaso, eta **erakusleihoko** argitxoak isiotu. Josu Landa

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erakusleiho zabala da. Alberto Barandiaren

Klausek garagardo botila, ordurako hutsa, **erakusleiho** txikiaren kontra bota zuen. Anjel Lertxundi

Espaloietan utzitako auto bakanen ondoan igaro nintzen, hutsik ote zeuden ikustearren, eta denda itxien **erakusleiho** ilunen itzalak aztertu nituen banan-banan. Alberto Ladron Arana

Marrubi eta kakahuete-gurinezko hiru izozki handi erosi zituen, eta kalexkan noraezean zebiltzan bitartean pozik zurrupatu zituzten, dendetako **erakusleiho** liluragarrietara begira. Iñaki Mendiguren

Hantxe dago, **erakusleiho** lohitua kartelez eta pintadaz beteta daukala. Iban Zaldua

Eta are okerragoa zena, dendako **erakusleiho** hautseztatuaz bestaldean Harryk ikusten zuen kale estu iluna ez zen inola ere Diagon kalexka. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan)

Handik bi urtera, goraxeagoko postu batera igorik zen, **erakusleiho** apaintzailearen laguntzaile izendatu baitzuten. Oskar Arana

Denbora gutxi egiten zuten elkarrekin, astearte eta ostiralero, Hannaren biolin-ikastorduen garaian, eta eguraldia edozein zela ere, neskatila beti itsuaren gidari eta **erakusleiho**-erakusle. Joxe Austin Arrieta

4 irud/hed

Tourreko etapa Euskal Herriaren **erakusleiho** bilakarazi nahi du Kanbok. Berria - Harian

Bertsolaritzak telebista bezalako **erakusleiho** baten beharra du. Berria - Kultura

Azokak **erakusleiho** izan nahi du, baina **erakusleiho** dinamiko eta praktikoa. Berria - Euskal Herria

Alphagalileo Europako ikerketen berri zabaltzeko sortu zuen Erresuma Batuko *British Association* elkarteak, Europan egiten den lanaren **erakusleiho** izateko. Berria - Gaiak

Barakaldon berriki estreinatua izan da euskal industriaren **erakusleiho** handiena: 251.000 m2-ko erakustoki erraldoi bat, "Bilbao Exhibition Centre". Herria

Makina-erreminta «mundura zabaltzeko **erakusleiho** aparta» izango da BEC, Ibarretxek nabarmendu zuenez. Berria - Ekonomia

Aro kontuen **erakusleiho** gure hedabideak ditugunez, bai aipatu nahi nukeela, urtaro hasierako data horietan, zenbateko presing eta estuasunak ikusi izan ditudan euren aldetik. Pello Zabala

Bitxia da, esate baterako, *La leyenda de Jaun de Alzate*-n, adibidez, euskal arima eta mitologia nola germaniartzen duen, Ortzi eta Thor berdinduz, bertute nietzschearrez adelatuz, etab., etnografikoki itxuragabekoa, baina **erakusleiho** polita Baroja-ren beraren arimarentzat. Joxe Azurmendi

Kultur **erakusleiho** bat. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bateko erakusleihoaren (5); **bateko erakusleihoaren aurrean** (4); **baten erakusleihoaren** (4); **baten erakusleihoaren aurrean** (4); **dendako erakusleihoari** (3); **dendako erakusleihoari begira** (3); **dendetako erakusleihoak** (5); **erakusleiho bat** (5); **erakusleiho batean** (9); **erakusleiho baten** (7); **erakusleiho baten aurrean** (4); **erakusleiho bihurtu** (6); **erakusleiho bihurtu da** (4); **erakusleiho garrantzitsua** (3); **erakusleiho handia** (3); **erakusleiho izan** (9); **erakusleiho izan nahi** (4); **erakusleiho izango** (5); **erakusleihoa da** (3); **erakusleihoaren aurrean** (13); **erakusleihoaren aurrean gelditu** (3); **erakusleihoaren beste** (3); **erakusleihoaren beste aldean** (3);

erakusleihoaren kontra (4); **erakusleihoaren ondoan** (5); **erakusleihoari begira** (4); **erakusleihoen aurrean** (4); **eta dendetako erakusleihoak** (3); **eta erakusleihoaren** (3); **eta erakusleihoko** (4)

---

erakusleku *iz* erakustokia.

Ostegunetik igandera bisitariak oro har eta bildumagile profesionalak mundu zabaleko 42 galeriek Kursaalean jarritako **erakuslekuak** ikusi ahal izan zituzten. Berria - Kultura

Maiatzaren 24a arte Getariako herriko **erakuslekuan** zintzilikatu ditu bere lanak. Berria - Kultura

Pierre Bonnard (Frantzia, 1867-1947) egilearen obra aukeratu dute Parisko Arte Modernoko museoko arduradunek, euren **erakuslekua** berriro zabaltzeko. Berria - Kultura

Animalia disekatuen **erakusleku** gordera sartu ginen, eta beste hainbat bazter debekatutara, oso kontuz, edozein izkina edo kantoitan egon zitekeelako jesuitaren bat zelatan. Joseba Sarrionandia

Txillidaren **erakusleku** berria aipatzen zuen, oraindik orain, Koldo Izagirrek, gauzei zentzua kanpotik ezartzeko gure joera gaiztoaren erakusgarri. Joxerra Garzia

Guztira 150 artelan inguru erabili ditu artistak **«erakusleku** zail batean» bere muntaia egiteko. Berria - Kultura

---

erakusmahai *iz* zerbait, eskuarki salgaiak, erakusteko prestatzen den mahaia. ik **salmahai**.

Harrera-lekura hurbildu nintzen eta **erakusmahaian** bermatu nituen ukondoak. Jon Muñoz

Asko gustatzen zait erretilu bat, eta labana txikia, sardea, koilara eta paperezko aho-zapia hartu, eta **erakusmahaian** nahi dudan janaria aukeratzea. Koro Navarro

Durangoko Azokako **erakusmahaietan**. Berria - Euskal Herria

20 **erakusmahai** paratu dituzte ekoizpen franko presentatuz, bai bistan dena etxakin ezagutuak gasna bezalakoak baina ere gauza berriak, inork gutik ezagutzen dituenak, hala nola kiwi erreximenta. Herria

Mota guztietako salgaiak pilatu dituzte **erakusmahaian**. Urtzi Urrutikoetxea

Betebeharren bat duzunean, batarekin eta bestearekin egon eta azkenean ez duzu astirik izaten **erakusmahaiak** lasai ikusteko. Berria - Kultura

-Ordaindu nahi dizut -erantzun nion, eta ehun dolarreko billetea **erakusmahaian** jarri nuen. Fernando Rey

Alleyne jauna eta Delacour andereñoa zeuden **erakusmahaiaren** aurrean zutik, eta enplegatu guztiak alde hartara bueltaturik, zerbait bazela eta. Irene Aldasoro

Erakusmahaiaren azpian, kutxa batean, untxi bizi batzuek lepoa luzatu eta haren gona usaintzen zuten. Karlos Zabala

Eskuak lirdingatsuak zeuzkan zamoen izerdiarekin, eta gorputzetik urruntzen zituen, **erakusmahaiko** arrain bustien gainetik. Karlos Zabala

Eskua luzatzen zuten dendetako **erakusmahaien** ondotik igarotzean, eta aran bat, eskutada bat gerezi, bakailao puska bat osten. Karlos Zabala

Zuzenean joan liburu berrien **erakusmahaira**. Jon Muñoz

Erakusmahaiaren altxagarria altxatu eta, bezeroen artetik igaroz, bulegotik irten zen, pauso astunean. Irene Aldasoro

Euskal literaturaren **erakusmahaia** jarriko du gaurtik urriaren 2ra LIBER-en Euskal Editoreen Elkarteak. Berria - Kultura

Beste ezer baino lehen, nobedadeen **erakusmahairantz** abiatu eta hara non Jack aurkitu nuen, gure liburu pilatxoaren ondoan. Iban Zaldua

Nire izena jakinarazi eta itxarongelarako bidea erakutsi zidan, larderiaz, **erakusmahai** baten gibelean harresitutako bulegari mari-ozpinak. Aingeru Epaltza

Aurten **erakusmahai** propioa izango du Nafarroak. Berria - Euskal Herria

Gizonak zurezko asto baten inguruan eserita zeuden; huraxe zuten **erakusmahai**. Juan Kruz Igerabide

2 irud/hed

Munduaren **erakusmahaia** da Alexandria. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erakusmahaiaren atzean (4); **erakusmahaiaren gainean** (3); **eta erakusmahaian** (3)

---

erakuspen *iz* erakustea.

Horixe da, azken finean, Keynesen **erakuspen** handia, inbertsioak oinarrizko eginkizuna betetzen duela jarduera ekonomikoan. Iñaki Heras

Nire adimen ustez pribilegiatuaren **erakuspen** gisa sortutako josteta hura tik baten pareko bihurtu zitzaidan, usadio lekedazu bat. Aingeru Epaltza

Bere izateko arrazoia adeitasun **erakuspenaren** edertasunaz justifikatzen duen atsekabearen duintasun hori gabe. Josu Zabaleta

Maitatzeak ez du adierazpenik, ez definiziorik, ez neurririk, ez **erakuspenik**. Jenaro Garate

Ortzirale aratsean: karate **erakuspena**, kontzertua Ahurtiko fanfarrarekin. Herria

Bururatuko da eztei arropa **erakuspenarekin**. Herria

---

erakustaile *iz* erakuslea, zerbait erakusten duen pertsona.

Sozialisten aro berriaren **erakustaile** izan liteke Iñakiren kasuari irtenbide duina ematea, besteei bezalako bermea jarrita kalera ateratzea ahalbidetzea. Berria - Euskal Herria

Jende ainitzekin iragan den meza nagusi eder hortan aurkitzen ziren ohiduren **erakustaile** -EMAK-HOR eko korala bere kantu ederrekin, musikariak beren soinu airosekin eta ere Besta Berriko gazteria Martxel kapitainaren inguruan, Makilari, Suisa, Zapur, Oilar, Banderari eta soldadoak. Herria

---

erakustaldi *(orobat **erakusaldi** g.er. eta **erakutsaldi** g.er.)* **1** *iz* erakustea, eskuarki irakaspena.

Nahi izan zuen halabeharrak ni aizkolari australiar baten **erakustaldian** suertatzea, eta ni neu aizkorarekin nahikoa trebea izaki, euskal ebakera erakusteko aitzakiarekin Australiara joan nintzen. Jon Alonso

Erakusketa hura, beraz, "oroimen hutsa"ren **erakustaldi** ez ezik, sujet obsesibo bakar bati loturiko oroimen batena ere bazen: haurtzaroko herriaren oroitzapenari loturikoarena. Xabier Olarra

Odola musuzapian ipini eta belarrikoa zela esan nuen, ondoezik nengoelako itxurak egiteko eta ama ikaratzeko; galtzak jaitsi eta **erakustaldi** bat egin nion Jack Williamsi. Koro Navarro

Bi mila pertsona inguruk parte hartu zuten atzo arratsaldean Gasteizen, Espainiako Armadaren Aguila patruilaren **erakustaldia** gaitzesteko manifestazioan, Gasteiz Desmilitarizatua plataformak egindako deialdiari jarraikiz. Berria - Euskal Herria

Goizean Herrialde Katalanetako elkarteek **erakustaldi** bat egingo dute, Lluis Companys pasealekuan barrena desfilatuz. Berria - Mundua

Sortuko zuen lan horrentzat merkatu bat, hasiko zen etekin on samar bat ematen, eta gero, bi edo hiru **erakustaldi** egin ondoren, artista hark hanka egingo zuen New Yorkera. Oskar Arana

Iñigo Pascualek **erakustaldia** eman zuen Eibarren; erraz, pilota ugari errebote inguruan jarrita. Berria - Kirola

Erakustaldia eman du Alejandro Valverdek eta bigarren saioa irabazi. Berria - Kirola

Erakustaldiaren izaera militarra ukatu du Espainiak. Berria - Euskal Herria

Azkenik, herri bateko biztanleak hainbeste ikaratu ziren Nourrek egin zien **erakustaldiaren** ondorioz, hil egin baitzuten, demonio baten aurrean zeudelakoan. Jon Arretxe

San Frantziskoko Exploratoriumak oroimenari buruzko sinposium bat eta **erakustaldi** bat antolatu zituenean. Xabier Olarra

Gizon-emakume haien artean denetik egongo zen, nik uste: **erakustaldi** hura ontzat jotzen zutenak, eta gehiegizkotzat jotzen zutenak. Joan Mari Irigoien

Istiluak saiheste aldera, txapelketa izena baztertu, eta irabazlerik eta galtzailerik gabe, **erakustaldi** moduan antolatu zen 73koa. Iñigo Aranbarri

Urdiñarbeko Müsikaren Egünak, ostegün arratsean hasirik "Kantuketan" **Erakustaldiaren** estrenarekin, igante arrastiritan ürrentü dira ederki. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gasteizko jaietako lehenengo egunean Espainiako Armadaren **erakustaldi** aeronautiko bat dago iragarrita. Berria - Euskal Herria

Une hartan animazio handia zegoen borrokarako laukietako nagusian, klubeko izarra zen Manu Kid Sanchez, pisu astunetako txapelduna, berton ari baitzen **erakustaldi** bizian. Josu Landa

Gaztetxoak beren **erakustaldi** indarrezkoak, militarrak, beldurgarriak noiznahi egiten zizkigutela. jada ez zuten beren armen **erakustaldi** hain nabarmenik egiten. Karlos Linazasoro

Toreatzaile zaldizko haien artean, kondea omen zen onena, eta erakutsi ere zigun bere **erakustaldi** ezin bikainago hartan ezen ez zuela idurikorik eta ez parekorik. Joan Mari Irigoien

Gero musika ipini zuten, doinu sentsual bat, eta berehala **erakustaldi** hirukoitza hasi zen. Jon Arretxe

Buru ona dut horrelako kalkuluetarako, eta, jendaurreko **erakustaldi** horietako batzuk neke handirik gabe egiteko gauza naiz, baina Berehala bildu ziren plaza erdira bertako eta kanpoko emakumeak, bertako eta kanpoko gizonezkoekin dantza egitera, gaueko dantzaldiak saiatzera, benetako **erakustaldia** ordukoa izango zela jakitun, bale ala kale egitekoa alegia. Xabier Olarra

Nire hizketarako trebetasunaren sekulako **erakustaldia** egiten nuen. Fernando Rey

San Ignacio, aldiz, bere praktikazko **erakustaldietan** da gure tesiaren aitzindaria. Jenaro Garate

Hamekak eta erditan, bota lüzeko **erakustaldi** bat. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Inoiz baino soldadu gehiago zegoen zalgurdiaren inguruan, eta, halako arma-**erakustaldia** ohikoa ez zenez, harritu egin zen Joanes, eta kezkatu. Felipe Juaristi

Bilboko Fantasiazko Zinema **Erakustaldiak** Mario Bavaren eta Barbara Steelen lana ekarriko du gogora maiatzaren 4tik 9ra arte. Berria - Kultura

Ikuskizun **erakustaldiak** hitzaldi eta ikastaroekin tartekatuko ditu. Berria - Kultura

Milango moda **erakustaldiko** modeloari soinekotik askatu zaion titi gorriak, berriz, bonba-auto baten indarra hartzen du. Iñigo Aranbarri

Alaitasun **erakustaldiak** debekatuta baitzeuden. Harkaitz Cano

Ilehoria gurekin ari zen bazkaltzen jokalariak bere berriketa **erakustaldiak** egiten zituen bitartean. Pello Lizarralde

Zigorra saihestu duelako zur eta lur, areagotu egin baitu bere damu-**erakustaldia**. Itziar Otegi

Goazen denok udaletxera protesta-**erakustaldi** bat egitera! Koldo Biguri

Bidea ireki zien haiei, gogor eginez borrokan ari ziren gorputzen artetik, gorputz okertuen arkuen artetik, gihar **erakustaldiaren** artetik, ke artetik, edari minen sunda artetik. Felipe Juaristi

Ez zen ohikoa nigan sentimendu **erakustaldi** handiak egitea. Oskar Arana

Ez zuen ematen oso pozik zegoenik senitartekoen arteko maitasun-**erakustaldi** harekin. Oskar Arana

-Zuk uste duzu niri moral **erakustaldiak** emateko moduan zaudela? Joxan Elosegi

Gero, oso astiro eta metodikoki, bere poza estu gorderik berezkoa ez zuen kontrol-**erakustaldi** ezohiko batez, Harryk lanari ekin zion. Oskar Arana

Hura, benetan, basakeria-**erakustaldi** tamalgarria izan zen. Koldo Biguri

Bertan kalejira, bazkaria eta kirol **erakustaldiak** antolatu dituzte (barrenatzaileak, sokatira eta kick boxing-a). Berria - Kirola

Ben Gordon Chicagoko jokalari ingelesak joko **erakustaldia** eman zuen. Berria - Kirola

Enpresak aurkeztutako Lehiakortasun Plana «asmo oneko adierazpen» hutsa da, eta onartzea oraingoz egiteko prest ez dauden «fede **erakustaldia**» baizik ez da. Berria - Ekonomia

Berekin ekarri zituen bide batez, gerrekin gertatzen den bezala, borrokaldien "albo-**erakustaldi**" batzuk, garrantzi handiegirik gabeko eskualde urrunetan. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste erakustaldi (15); **beste erakustaldi bat** (13); **diren erakustaldi** (3); **erakustaldi aparta** (6); **erakustaldi aparta eman** (3); **erakustaldi bana** (3); **erakustaldi bat** (35); **erakustaldi bat egin** (7); **erakustaldi bat egingo** (3); **erakustaldi bat eman** (6); **erakustaldi batean** (6); **erakustaldi batekin** (3); **erakustaldi batzuk** (3); **erakustaldi bikaina** (9); **erakustaldi hori** (3); **erakustaldi horietako** (4); **erakustaldi militarra** (4); **erakustaldi moduan** (3); **erakustaldi polita** (6); **erakustaldi polita egin** (3); **eta beste erakustaldi** (3); **eta erakustaldi** (10); **eta erakustaldi bat** (3); **indar erakustaldi** (12); **indar erakustaldi bat** (4); **joko erakustaldi** (3); **lehen erakustaldi** (3)

aguila patruilaren erakustaldia (4); **berrien erakustaldia** (3); **erakustaldia da** (4); **erakustaldia egin** (39); **erakustaldia egin zuen** (15); **erakustaldia egin zuten** (9); **erakustaldia eginda** (3); **erakustaldia eginen** (3); **erakustaldia eginez** (3); **erakustaldia egingo** (15); **erakustaldia egingo du** (6); **erakustaldia egingo dute** (6); **erakustaldia egiteko** (4); **erakustaldia egiten** (6); **erakustaldia egiten ari** (3); **erakustaldia eman** (79); **erakustaldia eman du** (7); **erakustaldia eman zuen** (61); **erakustaldia eman zuten** (3); **erakustaldia emanda** (5); **erakustaldia emanez** (3); **erakustaldia eskaini** (3); **erakustaldia eskaini zuen** (3); **erakustaldia eskainiko** (3); **erakustaldia eta** (5); **erakustaldia ez** (3); **erakustaldia gaitzesteko** (3); **erakustaldia izan** (8); **erakustaldia izan zen** (4); **erakustaldia izango** (3); **eta erakustaldia** (5); **eta indar erakustaldia** (4); **hegazkinen erakustaldia** (3); **horren erakustaldia** (3); **indar erakustaldia** (30); **indar erakustaldia egin** (10); **indar erakustaldia eman** (4); **indar erakustaldia izan** (3); **joko erakustaldia** (18); **joko erakustaldia egin** (5); **joko erakustaldia eman** (9); **lehen erakustaldia** (3); **patruilaren erakustaldia** (4); **sekulako erakustaldia** (11); **sekulako erakustaldia egin** (4); **sekulako erakustaldia eman** (6); **zuen erakustaldia** (3)

emandako erakustaldiak (5); **erakustaldiak egiten** (5); **erakustaldiak eman** (6); **erakustaldiak ematen** (4); **erakustaldiak eta** (8); **erakustaldiaren aurka** (3); **erakustaldiaren aurkako** (3); **erakustaldiaren ondoren** (10); **erakustaldiren bat** (3); **erakustaldirik egin** (6); **erakustaldirik handiena** (3); **inoizko erakustaldirik** (3); **inoizko erakustaldirik handiena** (3)

---

erakustalditxo *iz adkor* erakustaldi laburra.

Gehienek jaramon egin barik jarraitu zuten, eta nagusienak saiatu ziren gangarra atera eta euren **erakustalditxoa** egiten. Urtzi Urrutikoetxea

---

erakustarazi, erakustaraz, erakustarazten du *ad* erakustera behartu.

Dena den, pisuaren orratzak **erakustarazi** dezakeenaz harago, azken partidatan Mikelek bere pilota kolpeak iragan urte bukaeran erakusten zuen kamustasuna atzean utzi duela argi utzi du. Berria - Kirola

---

erakustareto *iz* erakusketak egiteko aretoa.

Kabinete abstraktua izendatu duten harrera gela egin dute, Paul Basañez arkitektoaren obra, «beste era bateko arte proposamenei lekua egingo dien **erakustaretoa**». Berria - Kultura

Triangelu itxurako eraikinean erabilera askotarako gelak egongo dira, 300 metro koadroko **erakustareto** bat, eta baita agertoki handia ere. Berria - Kultura

Margolari katalan handiak paisaiei buruz izan zituen ikuspegien gaineko erakusketa paratu dute Amaiurko Gazteluko **erakustaretoan**, Pilar i Joan Miro Fundazioko lan hautatuekin. Berria - Kultura

Dieciseis arte galeriaren **erakustaretoan**. Berria - Kultura

Erakustaretoaren barnealdean erakusten dira bigarren mailako pintore zenbaiten lanak. Berria - Kultura

Suzy Gomezek koadroekin bete du Nafarroako Museoaren **erakustareto** nagusia. Berria - Kultura

erakustazoka *iz* erakusketak egiteko azoka.

Erakustazokak hitzartuak ditu bederatzi azoka 2005erako. Berria - Ekonomia

Bilboko **Erakustazoka** topaleku bihurtu dute egunotan, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko neska-mutilei lanbide heziketak eskaintzen diena erakusteko. Berria - Euskal Herria

Barakaldon uhain batean bezala sartu gira Bilbao Exhibition Center **erakustazokaren** sabelera. Herria

Erakustazoken jarduera lege baten bidez arautuko da. Berria - Ekonomia

Bilboko **Erakustazokan** ospatuko duten Aberri Egunaren ekitaldia arkeztu zuen. Berria - Euskal Herria

Barakaldoko **erakustazokako** Bizkaia Arena pabiloian. Berria - Harian

Euskararen Egunaren karietara Bilboko **Erakustazoka** zaharrean egindako ekitaldi ofizialean egin zituen adierazpenok. Berria - Harian

Datuok Javier Madrazok eman zituen BEC **erakustazokaren** inaugurazioan. Berria - Ekonomia

Musikaren bidetik hegoaldera iritsiko dira bihar Bilboko **Erakustazokako** Pabiloian egingo den Elkartasun jaialdian bilduko direnak. Berria - Kultura

Erakustazokako laugarren pabilioia erdi hutsik dago, baina heldu dira lehenengo lagunak Inauterietako kontzertua entzutera. Javi Cillero

«Egonkortu eta nazioartera zabaldu» dela azaldu zuen atzo **erakustazokako** kontseilari ordezkari Jose Miguel Corresek. Berria - Ekonomia

Barakaldoko BEC **erakustazoka** kanpoaldeak atzo utzi zuen irudia. Berria - Harian

Egungo futbol-zelaiak 90 graduko bira egingo du Nazioarteko **Erakustazoka** egon zen lursailaren bi herenak aprobetxatuta. Berria - Kirola

---

erakuste *iz* ikusaraztea, begien aurrean ipintzea; zerbait egiteko jakituria edo trebetasuna ematea.

Erakuste bat objektu baten aurkezpen bisuala da. Askoren artean

1992. urtean, Lizarrakoek egin zuten Donibanen **erakuste** bat zinez pollita beren hiriaren historiaz Benetako erakusleen edukia ez dago finkatuta **erakuste** bat egiten ez bada. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez zait, baina, axola atzamarrak zer seinalatzen duen, gauzen **erakuste** beraren seinale iruditzen zaidalako. Imanol Unzurrunzaga

Fedearen sare erraldoiak pittin bat urratzen inori **erakuste** hutsak ikaratu egiten baitu halako jendajea. Patziku Perurena

-Bonbardaketak; ez ziren guretzat, gure aliatu urrun ere urrun haien hortz eta indar **erakuste** gogorra baino: bejondeiela. Juan Garzia

Tropen kopurua eta haien mantenuaren iraupena, nahiz eta guztiz alferrikakoak izan, hots, **erakuste** hutsagatik edukitzen direnak. Iñaki Iñurrieta

Esparru hori erakusten saiatuko gara bigarren hurbilpen honetan, nahiz eta **erakuste** soilean geratu, ezinbestean. Patxi Altuna

Erakustearen eta narrazioaren arteko bereizkuntza horrek irudiarekin lotura duten bi narratibitate maila izan daitezkeela esan nahi du. Josu Zabaleta

Erakustearen arazoa aztertu behar baitugu orain, labur bada ere. Josu Zabaleta

Hegaztiak azoketan **erakustearen** aurkako neurria kendu dute, baina abeltzainek euren hegaztiak erregistratu behar dituzte. Berria - Gaiak

Nahikoa zitzaion pertsonaiak **erakustearekin** -"hara hor fusilatuak"- eta koadernoko gorilaren begiratuarekin. Bernardo Atxaga

2 (hitz elkartuetan)

Adberbioa esateaz gain atzamarra luzatu ohi dugu, **erakuste** -zeinu batekin nahiko izango ez bailitzan. Imanol Unzurrunzaga

· Ez ziren guretzat, gure aliatu urrun ere urrun haien hortz eta indar **erakuste** gogorra baino: bejondeiela. Juan Garzia

---

erakustegi **1** *iz* erakustokia. ik **erakusgune; erakustoki; erakusleku; erakusleiho**.

Aipatzekoa aurtengo Expo hau energia berriztagarriei eskaini zaiela eta zenbaitek ildo horretan sartu dutela euren **erakustegia**. Edorta Jimenez

Zapata-denda handiaren **erakustegiari** beha gelditu zen, bota pare berriaren premia zeukan. Koldo Izagirre

Leichner edergarrien **erakustegi** osoa, makillaje koipetsuak, arkatzak kolorez ordenatuak, zuk utzi zenituen bezalaxe, eta, horrekin batera, pistarako jantzi zaharrak. Josu Zabaleta

Denik ere ondo hauetan balitz **erakustegi** bat edo holako zerbait. Janbattitt Dirassar

Arma **erakustegi** batean eskegita zeukan turkiar zimitarra handi bat hartu, eta jotzera zihoan, nola Abraham batek mendian, noiz eta gogoeta batek eskua gelditu baitzion. Josu Zabaleta

2 *ipar* museoa. ik **erakustoki 4**.

Miarritzeko itsas-**erakustegiak** ospatu ditu bere 70 urteak. Herria

Baionako Euskal **Erakustegia**. Herria

Donibane Lohizunen eta Ziburun, aspaldixkoan aipu da itsas-ondareari eta bereziki arrantzari buruzko **erakustegi** berezi baten muntatzea. Herria

Donibane Lohizunen, euskal ohiduren **erakustegian**, erakusketa berezi bat muntatua dute, abendoaren lehena arte segituko dena. Herria

Donibane Lohizunen, *Ecomusée* **erakustegiak** ideki du erakusketa berezi bat ihauteriari buruz, hiru astez segituko dena. Herria

3 (hitz elkartuetan)

Jakin-arazi du itsas-**erakustegi** bat moldatzen ari dutela, helduden ekainean estreinatzekoa dutena, parte bat izanen euskaldun arrantzaleen oroitzapenetan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bonnat erakustegian (5); **da getariako erakustegian** (5); **erakustegi bat** (15); **erakustegi batean** (3); **erakustegi berezi** (4); **erakustegi berezi bat** (3); **erakustegi hori** (3); **erakustegia bera** (3); **erakustegian estreinatu** (3); **erakustegian estreinatu dute** (3); **euskal erakustegia** (7); **euskal erakustegian** (3); **euskal ohiduren erakustegian** (3); **getariako erakustegian** (17); **hordago erakustegian** (14); **itsas erakustegi** (4); **itsas erakustegi bat** (3); **itsas erakustegian** (3); **lohizuneko hordago erakustegian** (3); **ohiduren erakustegian** (3)

---

erakustegiño *iz adkor* erakustegi txikia.

Bakoitxak bazuen beraz bere **erakustegiñoa** jai-alai ezkerparetan. Herria

---

erakusteke *adlag* erakutsi gabe.

Zerbitzariekin eseri ziren, batzuen eta besteen arteko maila-desberdintasuna **erakusteke**, baina, hala ere, ezin bestela, elkarrekin nahasteke. Felipe Juaristi

Taldeko izarra zenak dena **erakusteke** izango du orain, eta zorrotz aztertuko dute. Berria - Kirola

-Aleykom salam -erantzun dit, konbentzimendu handirik gabe, irribarre laurdenik ere **erakusteke** ezpainetan-. Jon Arretxe

Goxo eta maitekor xuxurlaka hasi zitzaion, emakumearen ona lortzearren, eta emakumeak utzi egin zion hizketan, pozik ala triste ote zegoen **erakusteke**. Felipe Juaristi

---

erakustetxe *iz ipar* ikastetxea.

Erakustetxe bat guziz ospetsua bere xahartasunarekin ongi josirik dauzkana egungo ikasleen ordenagailu eta istudio-bideak. Herria

Autobidean sartzean, bitxiki, behin **erakustetxe** batean kuriositatez hazkaokatu mugarri elektronikoetako dokumentu laburrak jin zitzaizkidan buru zokoaren kilikatzera. Itxaro Borda

Getariako **erakustetxeko** zuzendaria den Jean François Larralderi esker, 7 euskal artista handiren obrak ikusgai dira azaroaren 5eraino Haize Berri kulturetxan. Herria

---

erakustezin *izond* ezin erakutsizkoa.

Baina hari hori **erakustezina** da, asmatu hutsa delako. Jenaro Garate

---

erakustoki *(orobat **erakutstoki** g.er.)* **1** *iz* erakusketak egiteko tokia. ik **erakustegi**.

Oroitzen al duzu oparitu zenidan margo kaxa handia? Zenbat ordu ez ote nituen igaro **erakustoki** aurrean hari begira? Eider Rodriguez

Berehala geratu zen agerian amodiozko nobela bitxi hura ez zuela inork erosiko; pixkanaka **erakustokietatik** erretiratu zuten eta haren guztiaren ondorioz, gure pisuko idazlea krisialdi larri baten murgildu zen. Jon Arretxe

Horra ostegun goiz batez Mme Labotte, fruitu saltzailearen dendako **erakustokiaren** inguruan, Maraîcherie kaleko 26an, bilduta zegoen biltzartxoa. Josu Zabaleta

Belar egosiak saltzen zituen; atzeko aldean, hainbat azpilek dir-dir egiten zuten; **erakustokian**, ziazerba eta txikori oreek, ontzietan jarririk, pila biribilak osatzen zituzten. Karlos Zabala

Nafarroako Gobernuak ere **erakustokia** izango du Expolanguesen, eta euskarari leku egingo dio bertan. Berria - Euskal Herria

Bere funtsetako artelanak erakutsiko ditu erakusketa iraunkorrean, eta horrez gainera, belaunaldi berriei lagunduko die, bai **erakustokiak** utziz eta baita Alfa Arteren lehiaketaren bidez ere. Berria - Kultura

Erakustoki batean hainbat plater eskuzuri liliaren pipitekin, eta kopak ugari. Patxi Zubizarreta

60.000 metro koadro beteko du erakusketak eta makinak izango dira, hain zuzen ere, 841 **erakustokietako** protagonista. Berria - Ekonomia

Lurrean paratu zituen metodikoki, merkantzia apainduz, hostoak kanpoaldean ipini eta barazki pilak ertz berdez inguratzen zituela, eta **erakustoki** apain bat egokitu zuen bizkortasun apartaz. Karlos Zabala

Argazkiari eskaini **erakustoki** iraunkor batez gain, ikastaldiak eta sorkuntza egonaldiak eskaintzeko espazio batek osatuko du Argazkiaren Etxeak. Berria - Kultura

2 irud/hed

Silverio zena, jainkoak gorde dezala haren arima, bertute **erakustokia** ez bazen ere zitala ere ez baitzen izan. Bego Montorio

Militante izango ziren gaztetxoak herria mundua denak zeuden niri begira, Jeneralak **erakustoki** ezin hobea eskaintzen zidan, baldin nik adorerik baneukan. Koldo Izagirre

3 museoa. ik **erakustegi 2**.

Neure kotxea (Peugeot zahar bat egun hartan, Frantzian matrikulatua), Errobi ibaiaz bestaldean aparkaturik utzia nuen, Euskal **Erakustokiaren** parean. Txillardegi

Mundu hori agertzen du Baionako Euskal **Erakustokiak** muntatua duen erakusketan. Herria

Euskal **erakustokiaren** inguruan duela kasik 50 urte sortua den "Euskal museoaren adiskideak" elkarteko buruzagitzan, gure xiberotarrak lekukoa hartzen dio Mikel Duvert erakasleari. Herria

Duela bi urte berriz idekia, denbora asko zerratua egonik dena xaharberritu behar zutelakotz, Baionako euskal **erakustokia** dugu zinez gure ondarearen lekuko bat guziz aberatsa. Herria

Bilboko Guggenheim **erakustokia** ere osagarri ezin hobean da. Herria

Parisko Pompidou **erakustokiak** bere artxiboan dituen artisten bideoak bihar erakutsiko ditu FIPAk, 15: 15etik aitzina, betiere Le Royal zinemagelan. Berria - Kultura

Ihes nindoan eta Fatihak igurikatzen ninduen Beaubourg zentroko arte garaikideko **erakustokian**, harrigarrizko urdin bakarreko Kleinen margoaren aitzinean. Itxaro Borda

Baionako **erakustokian** beste museoetan bezala da! Ramuntxo Etxeberri

Pariseko "Musée Grévin" edo Londreseko "Tussaud" **erakustokietan** bezalaxe. Ramuntxo Etxeberri

Marseilla, azoka eta **erakustokia**. Berria - Kultura

Halere, katedraleko **erakustokira** joanen nintzen gogotik, gela Santiagoko Bideari kontsekratua baita mapa ohargarriak badaitezke. Piarres Aintziart

Erakustokiko atalik nagusienak bazterturik, ongi ezaguna zitzaidan aretora eraman nuen, euskaldunen atalera, eta Mikel, ez bat eta ez bi, hango testua kopiatzera lotu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Horietarik badaude Nafarroako Diputazioan eta **Erakustoki** nagusian denen bistan emanak, hala nola "Azpilkueta, el Doctor Navarro", "Carlos III de Navarra" eta beste. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Donostiako Aquarium Itsas **Erakustokiak** 75. urtemuga ospatzen du aurten. Herria

Salbaikeriak: Bagdad-eko **erakustoki** arkeologikoa munduko aberatsenetarik zen, omen. Herria

---

erakustun **1** *iz* irakasle.

Baina nolakoa da anitzetan unibertsitatean aterpe bila dabilen euskal **erakustun** hori? Pello Salaburu

Erakustuna, frutadenda ondoko arrandegiko jabearen iloba, Charly baino lau-bortz urte zaharragoa. Aingeru Epaltza

Sinetsi egin dielako guraso eta bestelako **erakustunei** gauzak zerbaitegatik direla. Iñaki Segurola

• **2** *izond* erakuslea.

Gaurgero ordea, animaliak baino okerrago dira: gidari **erakustun** batekin egiten baitute turismoa. Patziku Perurena

---

erakutsaldi ik **erakustaldi**.

---

erakutsarazi, erakutsaraz, erakutsarazten **1** du *ad* erakustera behartu; erakutsi.

Graben-en, gizonezkoen moda-denda handian sartu eta saltzaileari gorbatak **erakutsarazi** zizkion Kallisthenes Skuludisek. Anton Garikano

Eskolako koadernoak **erakutsarazten** zizkigun, eta monokuloa ipinita, serio-serio, gure lanak zorrotz gaitzetsi eta irakasten hasten zitzaigun. Ander Irizar

Begi beltzak, itzal ilunez margotuak zituen, eta irribarreak hortz zuriak **erakutsarazten** zizkion. Josu Zabaleta

Pesta hau hasi da afitxa lehiaketa batekin; afitxa horiek aurtengo Baztandarren Biltzarraren emanaldia behar zuten **erakutsarazi**. Herria

Encina Serrano talde terapia egitera baino ez da etorri, gatazkaren parte ez dela **erakutsarazteko**. Berria - Euskal Herria

Baina, orduan, nire eskua hartu zian, eta berarekin batera hatzaz **erakutsarazi** zidaan, ikus nezan. Mirentxu Larrañaga

---

erakutsi[1], erakuts, erakusten **1** du *ad* ikusarazi, begien aurrean ipini; azaldu.

"Erakutsi al zizun hau?" Eskuan folio tamainako liburu bat zeukan. Bernardo Atxaga

Amak termometroa **erakutsi** zidan, ipintzeko eskatzera ausartu gabe. Juan Kruz Igerabide

Logela eta komunak **erakusten** dizkit. Piarres Aintziart

Muinoia **erakutsi** beharko zien. Ramon Saizarbitoria

Orain burua **erakutsi** du jantzitokiaren gainetik. Xabier Paya

-Mesedez, **erakutsi** oihalak. Jose Morales

Goiok ez zion armen poltsa hura inori **erakutsi**. Joseba Sarrionandia

Kendutako zatia gaixoari **erakustea**, ordea, ez nuen garbi ikusten. Xabier Olarra

Eskuratuak zituen paperak **erakutsi** behar izan zizkion jendarme bati. Karlos Zabala

Igarobaimena **erakutsi** zuten hirurek. Koro Navarro

Morroietako batek zigarro pakete bat **erakutsi** zien gainerakoei. Anjel Lertxundi

Paper puska zuri bat **erakutsi** zuen, tolestua. Aingeru Epaltza

Irudi estereoskopikoaren printzipioa Wheatstonek formulatu zuen 1838an estereoskopioa asmatu zuenean; tresna horren bidez begi bakoitzari irudi bat **erakusten** zaio: [...]. Josu Zabaleta

Karneta **erakusten** diogu mutilek elkarri eta ezaupide ofizialak egiten. Iñaki Segurola

Ofizial batek ikusirik Sarak biolin-kutxa zeramala eskuan, **erakusteko** agindu zion. Felipe Juaristi

Gernu-toki bat edo botilategi bat artelantzat har badaitezke, arte-galerietan (eta gaur egun museoetan) **erakutsi** izan direlako, gogoeta baten, jarduera artistiko baten gisa komentatu izan direlako, eta, artista baten sinadura dutenez, haren egintzatzat har daitezkeelako gertatzen da hori. Josu Zabaleta

Erretratu haiek, exagerazioaren eta soberaniaren lengoaian mintzo zirenak [...], Villagrandeko dukesak eta Mantillanako kondesak jarri zituzten aurpegi lekuz kanpokoen adierazteko, noiz eta aitak prestaturikako festa handi hartan sugegorria **erakutsi** bainien. Joan Mari Irigoien

Berehala gelditu zen ezintasun amorratuzko keinu bat eginda, ihesi zihoazen gurpilei ukabila **erakutsiz**. Karlos Zabala

Gutxik bezain bizi eta zehatz gordetzen zituen oroimenean, nahiz eta kolorerik gabe gorde beti, **erakusten** zitzaizkion gauzen irudiak. Xabier Olarra

Gero, anbulantziakoen artean buru egiten zuenak kaxkarreko ebakia egin dion teila-puska **erakutsi** dio. Berria - Kultura

Erakutsi zion Davidi erroldaren emaitza: Israelen milioia eta ehun mila gizon ziren gudurako gai, eta Judan laurehun eta hirurogeita hamar mila. Elizen arteko biblia

-Jauna, **erakuts** iezaguzu Aita, eta aski dugu. Askoren artean

Gurdizaina gibelean zeukan, eta pistola baten ahoa **erakusten** zion. Elena Touyarou

Argazkiak begiak ikusi ezin duen bezala **erakusten** digu mundua, "normalean ikusten ez diren gauzak" **erakusten** dizkigu. Josu Zabaleta

Nola prestidigitadoreak, karta-multzo batean zazpiko pika aukeratu, eta, esku-jokoa egin ondoren, bada, hala zure karta **erakutsi**, eta "zazpiko pika!" garrasi egiten dizunean bezala. Jon Muñoz

Berehala **erakutsi** zien Léak Ruche jaunak bezperan emandako gutun-azala. Jon Muñoz

Lepokoaren kutxatxoa atera zuen, Hamidari **erakutsi**, eta gaineratu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Ertzainari bizkarra **erakutsi** eta etxe aldera hartzen dut. Anjel Lertxundi

Viretek bizkarra **erakutsi** zidan eta paperak biltzeari lotu zitzaion berriz. Aingeru Epaltza

Otsoak hortzak **erakutsiak** zituen. Elena Touyarou

Bizitzak **erakutsia** zion joanean doan denboraren sentipena edo eguneroko gauzen estimazioa. Josu Zabaleta

Amak, oroit naiz arras xuxen, **erakutsiak** zizkidan Erromako Bidearen izarrak. Piarres Aintziart

Erakutsiriko joko mailak bera egiten du faborito. Berria - Kirola

Hik lagunduko duk hona eta hara, hik **erakutsiko** dizkiok **erakustekoak**. Txillardegi

2 (gauza abstraktuak)

Halako distira **erakusten** zuen izar hari Sothis esan zioten, Sothis edo Sirio. Pello Salaburu

Halako ziurtasuna **erakusten** zuen, non aztoraturik uzten baitzituen ingurukoak. Jon Muñoz

Bangladeshen mila pertsona inguruk **erakutsi** zuten beren haserrea hiriburuan, Danimarkako eta Italiako banderak erreta. Berria - Mundua

Demokristauek txanponaren beste aurpegia **erakutsi** dute: 1975. urtetik hona izaniko emaitzarik hoberena lortu dute, eta itxaropen guztiak gainditu dituzte. Berria - Mundua

Ez dut uste behar baino irrika handiagorik **erakutsi** nuenik horretarako. Xabier Olarra

Kurbak **erakusten** du haur batek adin batekin izan beharko lukeen garaiera eta pisu ideala. Berria - Gaiak

Inflazioak bi aurpegi **erakutsi** zituen urteko lehen bi hilabeteetan Hego Euskal Herrian. Berria - Ekonomia

Ezpainetan, irriño batek maitasuna **erakusten** zuen, hala gizakiekiko nola munduarekiko. Patxi Zubizarreta

Janzkera apal baina ongi zainduak zeramatzan batengana jo zuen, askatasunik ezean, duintasuna **erakutsi** behar dela uste baitzuen gizon adintsuak. Felipe Juaristi

Literaturak ez duela moralismo edo militantismoaren beharra **erakusten** digu, nonbait. Janbattitt Dirassar

Portzentaiak oso kontsolagarri izan badaitezke ere, errealitate gordinak kaltetuaren edonortasuna **erakusten** zuen. Bernardo Atxaga

Zinezko datuak eskuratzea zaila edo ia ezinezkoa delako, batez ere datu bilketa egiteko moduak sinesgarritasun gutxi **erakusten** baldin badu. Pello Salaburu

Gerra-urtea gezur-urtea dela esan ohi zen, baina badaki gerrak egia gorria **erakusten** ere, egia bel-betza ez ezik, eta baita inoizka egia bera zer den ere. Iñaki Segurola

Sarrerazainak xera handirik **erakutsi** gabe utzi zidan pasatzen. Anjel Lertxundi

Inolako sentipenik **erakutsi** gabe ari zen, nekatu aire bat, gehienez ere, lorik gabeko beilak hartaratua. Aingeru Epaltza

*Syntactic Structures*ek gramatikari buruzko ikuspegi berri bat **erakutsi** digu: gramatika ondoz ondoko 'itxurapen-maila' abstraktuen segida bat da, eta maila bakoitzak perpausaren alderdi desberdinak biltzen ditu. Itziar Laka

Neurrikoa deritzotenek esker ona **erakuts** biezaiote, ez niri, nirekin Jaungoikoari baizik. Imanol Unzurrunzaga

Volanges andrearen hutsegiteak **erakusten** digunez, Valmontek, bertze gaizkileek ez bezala, ez zituen gaizkideak salatzen. Jon Muñoz

Ez genuela kezkarik **erakutsi** etxean bertan erasotzen digun hitz bortxatuagatik, idazkeragatik, pozoituriko ideologiagatik. Iñigo Aranbarri

Borrokalari ausarta da erlea; bere biziaz ordainduko du erasoa, bortizkeriaren neurri zehatza **erakutsi** nahi balu bezala. Anjel Lertxundi

Erakutsi niri zeure arauen bidea, horri jarraitzea izango dut sari. Elizen arteko biblia

Hermanni benetan eskertzen niona **erakusten** zidan estimua zen. Anjel Lertxundi

Notarioak ere ez zuen **erakusten** istorioaren xehetasunak jasotzeko interes berezirik. Ramon Saizarbitoria

Zein aholku ederrak ezjakinarentzat; hori trebetasuna **erakusten** duzuna! Elizen arteko biblia

Müller jaunak zure atzoko jokabidearen berri eman dit, eta heldutasun handia **erakutsi** duzu. Anjel Lertxundi

Profetek ausartzia handia **erakutsi** dute sorkaria bere Sortzailearekin kidetzean, adibidez, hau esatean: [...]. Xabier Kintana

Ezezko erantzunaren arrazoi nabarmena gizartearen eta gizakiaren izaerak **erakusten** du. Iñaki Mendiguren

Eta, ene harridura **erakusten** niola, erran nion: [...]. Joan Mari Irigoien

Trebetasun berbera **erakutsiz**, Vaziristango mahsudek britainiarren hainbat ahalegin zapuztu zituzten. Iñaki Mendiguren

Ikusmeneko dohainez gain, beste batzuk ere **erakutsi** zituen Stephenek. Xabier Olarra

Begi-zuloak izuaren izuz ia husturik baneuzkan ere, Marrok ez zuen zirkinik egin erruki apur bat bederen **erakusteko**. Juan Kruz Igerabide

Norak, bi gizonen aurrean **erakutsitako** ahuleziaren lotsa eraman ezinez, basoa luzatu zion Andreasi. Anjel Lertxundi

Jakinduriaren sekretuak **erakutsiko** lizkizuke, giza adimenarentzat sakonegiak direnak. Elizen arteko biblia

Erakutsi niri zeure arauen bidea, horri jarraitzea izango dut sari. Elizen arteko biblia

Baterat eta bertzerat hedatu behar diagu negozioa, baterat eta bertzerat joan, hango eta hemengo handikiekin eta merkatari ahaltsuekin solastu eta haiei geure asmoak **erakutsi**. Joan Mari Irigoien

Gorago **erakutsi** dut horietaz daukadan iritzia. Koldo Zuazo

Aspaldi handiko tradizio honek guziak, noski, zubiak gizaldiz gizaldi izan duen inportantzia **erakusten** du. Patziku Perurena

Eternidade guzian bizi nahi izateak, edo ez hil nahi izateak, sentiera zaharkitu ahul baten aztarna **erakusten** du. Patziku Perurena

Oso nabarmena da Erdi Aroko "Aristoteles judua" deituak filosofo greko horrengana **erakusten** zuen mirespena. Xabier Kintana

Bi hitzen elkarketak sortzen du asmatitza, izenak berak **erakusten** duenez: asmatu hitza=asmatitza. Iñaki Arranz

Newtonek **erakutsi** zuenez geroztik, gauza jakina da koloreak deskonposatu egin daitezkeela. Josu Zabaleta

Beraz, esperientziaren objektua halako elkarloturarik gabe ezinezkoa litzatekeela **erakusten** du. Ibon Uribarri

3 (zer osagaia mendeko esaldi bat dela)

Hor, ogi-koskorrez osaturiko otorduan **erakusten** da egiaz zer den pobretasuna. Askoren artean

Ez al dizuete eskolan **erakutsi** zer den soka eta zer listaria? Bernardo Atxaga

Eta Jaunak anaiak eman zizkidanean, inork ez zidan **erakutsi** zer egin behar nuen. Joan Mari Irigoien

Ene haurrok, zatozte entzutera! Jauna errespetatzen **erakutsiko** dizuet. Elizen arteko biblia

Oihala koadroan ipintzen **erakutsi** zidan. Juan Kruz Igerabide

Neuk **erakutsiko** dizut nola egin nire egoitza eta bertako hornidura guztia. Eskarmentuak **erakusten** du, ordea, larunbat gauerdiko haize jakinak ez duela hiru hilabetetan irauten. Elizen arteko biblia

Nafarroako Diputazio frankistak dirua ematen zigun euskaraz genekienoi, azterketa baten bidez bagenekiela **erakutsi** ondoren. Pello Salaburu

Ni ETAko kide arriskutsu bat baino ez nintzela **erakutsi** nahi zioten epaileari. Berria - Euskal Herria

Bera ere lasai zegoela **erakusten** saiatu zen. Iban Zaldua

Beti egia esan behar dela **erakusten** dute hezitzaileek; egia esatea komeni zaiola esaten diote torturatzaileek atxilotuari. Iñaki Segurola

Ez zitzaidan, beraz, askorik kostatu kultura maila ona nuela **erakustea**. Ramon Saizarbitoria

Alde batetik, **erakusterat** eman bera hor dela oraino hiru urterentzat segurik. Herria

Talesek **erakutsi** zuen triangelu bakoitzari zirkulu bat egokiaraz dakiokeela. Jon Muñoz

Denboraren martxak berak **erakutsiko** dio kartzelarien mainek xede argia dutela, eta ezagutza horren ondorioz, bere burua indartzen ahalko du. Filipe Bidart

Jauregiko morroi-neskameei **erakusteko** ezen ez zela deabrua zulo hartan ezkutatzen. Joan Mari Irigoien

Odol noblea dugula **erakutsi** diok ikazkin horri. Anjel Lertxundi

Ez al dizue naturak berak **erakusten** gizasemearentzat lotsagarri dela ilea luze eramatea [...]? Elizen arteko biblia

Ber liburuan, **erakusten** zuen ere zein handiak diren estatuak gizakiari egiten dizkion kalteak. Piarres Xarriton

Newtonek, prismaren esperimentu ospetsuan, 1666an, **erakutsi** zuen elkarturiko kolorez osatzen dela argi zuria: [...]. Xabier Olarra

Beraz, esperientziaren objektua halako elkarloturarik gabe ezinezkoa litzatekeela **erakusten** du. Ibon Uribarri

Orreagako priore Frantzisko Nafarroakoak eta haren kalonjeek behartu ninduten delako komentuan kalonje bezala sartzera, **erakutsi** ene beharra bazutela komentuaren zaintzeko eta indartzeko, denborak **erakutsi** zuen bezala. Piarres Xarriton

Matematika ikertzeak **erakutsiko** ziela medikuei nola konpondu medikuntzako arazo ezin konponduzkoak. Irene Aldasoro

Aitzineko lau arrazoi horiek **erakusten** dute ez dela zilegi gure delako Artzapezpikuaren auzia Espainian erabakitzea. Piarres Xarriton

4 (adizlagunekin)

Erraz **erakuts** dezakegu hizkuntza hauek guztiak ez direla egoera mugatuko hizkuntzak. Itziar Laka

Kasko moderno batek indio zaharraren aurpegia babesten du, eta harro **erakusten** du eskuetan dinamitazko txistor luzea, txortena zut. Pako Aristi

Iturriek argi **erakusten** dute Frantzisko diakono zela, ez apaiz, nahiz eta ez diguten esaten noiz eta nola ordenatu zuten. Askoren artean

Gure borondatea argiki **erakutsi** dugu, hitzez eta ekintzez. Berria - Harian

Maiz desegokitasunaren iturria argiro **erakuts** dezakegu. Itziar Laka

José Saramagok ederki **erakusten** digu bere hitzarekiko ardura noraino iristen den. Jon Alonso

Egizue zehatz-mehatz **erakutsiko** dizudan ereduaren arabera. Elizen arteko biblia

Garbi **erakusten** du hori Lourdesen lehengo mendean gertatu zenak. Bernardo Atxaga

Naturak bere ezkutukiak ageriago **erakusten** ditu, hain zuzen. Xabier Olarra

Gizakitxo durduzatuaren neurosi indibidual jasanezina gainditzeko, aginduak eta debekuak "neurosi kolektibo" baten indar absolutuarekin nola bermatzen dituen gizarteak, aspalditxo **erakutsi** zuen Freudek. Joxe Azurmendi

Bush batek eta **erakusten** du aski. Herria

Kurbak **erakusten** du haur batek adin batekin izan beharko lukeen garaiera eta pisu ideala. Berria - Gaiak

5 zerbait egiteko jakituria edo trebetasuna eman. ik**irakatsi**[1].

Aitzakia txiki bat besterik ez duzu behar ikasi duzuna **erakusteko**. Rafa Egiguren

Ikasi zutena **erakutsi** behar zuten lizeoko bertze neska jeloskorrei. Ramuntxo Etxeberri

Pareta haietatik zehar pasatu nuen begirada, eta aita Vitorino etorri zitzaidan gogora, dotrina **erakusten** ari zen eta igandea Jaunaren eguna zela zioen. Karlos Zabala

Zenbait irakaslek **erakusten** dizkieten "irudizko ereduetatik" ihes egin nahi dute, eta eguneroko bizitzan herritarraren kezka diren fenomeno ekonomikoak ulertu ahal izateko ahalegina egitearen alde agertzen dira. Iñaki Heras

6 *hortzak erakutsi*

Zakurra atzeratu zen, gaitziturik, eta **hortzak erakutsi** zizkion baina berriz hurbildu zitzaionean, burua laztandu zion besten behin. Elena Touyarou

Atzo, gainera, LABeko Metaleko buru Igor Urrutikoetxeak salatu zuen beharginak «kate motzean» lotu guran dabilela patronala eta, beraz, ezinbestekoa dela **«hortzak ereakustea»**, lan itun duinak lortze aldera. Berria - Ekonomia

Petacchik **hortzak erakutsi** dizkio Booneni Andaluzian. Berria - Kirola

-Segi hizketan, Malfoy, eta orduan egingo dizut nik benetako zauria -bota zion Ronek, hortzak **erakutsiz**. Iñaki Mendiguren

7 *bizkarra erakutsi* bizkarra eman.

Ikusten ninduen egunean, diosala ukatu eta **bizkarra erakutsiko** zidan? Anjel Lertxundi

Urkamendi gaineko gorpuei **bizkarra erakutsirik**, jendearen artean galdu zen, aspaldian ez bezalako liho-uzta ederra jaso duen baten liraintasunez. Anjel Lertxundi

Baten bat topatzen badu, handikeri puntu batez **erakusten** dio **bizkarra**. Itziar Otegi

Bizkarra erakutsi genion Tomasi eta itsasoari. Koldo Izagirre

Labaingo apezak **bizkarra erakutsi** behar dio erantzukizunari, bizitza kanonikoa egingo badu. Anjel Lertxundi

Metafisikari **bizkarra erakutsiz**, esperientziari -enpirismoari- ateak zabaltzea. Anjel Lertxundi

Efraimen leinuko arkulariek, ongi armaturik egon arren, **bizkarra erakutsi** zuten gudu-egunean. Elizen arteko biblia

Idazleak merkatuari **bizkarra erakusten** badio, uko egiten dio bere lana ezagutarazteko aukerari. Anjel Lertxundi

Metafisikari **bizkarra erakutsiz**, esperientziari -enpirismoari- ateak zabaltzea. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

erakuts daiteke (10); **erakuts dezan** (10); **erakuts iezadazu** (16); **erakuts iezaguzu** (8); **eta erakuts** (11)

agiria erakutsi (9); **amak erakutsi** (10); **argazkia erakutsi** (11); **argazkiak erakutsi** (18); **argi erakutsi** (62); **argi erakutsi du** (11); **argi erakutsi dute** (8); **argi erakutsi zuen** (8); **argia erakutsi** (10); **arte erakutsi** (25); **asko erakutsi** (31); **asmoa erakutsi** (30); **asmoa erakutsi zuen** (9); **asmorik erakutsi** (9); **aspaldi erakutsi** (12); **atxikimendua erakutsi** (17); **aurka erakutsi** (17); **aurpegia erakutsi** (15); **aurrean erakutsi** (17); **babesa erakutsi** (10); **badagoela erakutsi** (9); **badakiela erakutsi** (22); **badakiela erakutsi du** (12); **baduela erakutsi** (14); **baina erakutsi** (10); **baino gehiagotan erakutsi** (9); **bakarrik erakutsi** (13); **balioa erakutsi** (11); **bat erakutsi** (201); **bat erakutsi behar** (10); **bat erakutsi dit** (11); **bat erakutsi nahi** (12); **bat erakutsi zidan** (30); **bat erakutsi zien** (11); **bat erakutsi zion** (34); **bat erakutsi zuen** (16); **bat ere erakutsi** (10); **batean erakutsi** (8); **batek erakutsi** (30); **batzuk erakutsi** (18); **bera erakutsi** (12); **berak erakutsi** (20); **berehala erakutsi** (14); **berezia erakutsi** (13); **berriro erakutsi**

(17); **berriz erakutsi** (11); **berriz ere erakutsi** (8); **beti erakutsi** (15); **bezala erakutsi** (11); **bidea erakutsi** (44); **bidez erakutsi** (10); **bikaina erakutsi** (12); **bizkarra erakutsi** (30); **borondatea erakutsi** (49); **borondatea erakutsi behar** (8); **borondatea erakutsi du** (11); **borondatea erakutsi zuen** (11); **borondaterik erakutsi** (11); **burua erakutsi** (17); **da erakutsi** (10); **dagoela erakutsi** (78); **dagoela erakutsi du** (25); **dagoela erakutsi nahi** (9); **dagoela erakutsi zuen** (24); **daitekeela erakutsi** (22); **daitezkeela erakutsi** (10); **daudela erakutsi** (28); **dela erakutsi** (214); **dela erakutsi behar** (10); **dela erakutsi du** (63); **dela erakutsi nahi** (17); **dela erakutsi zuen** (64); **den erakutsi** (26); **dena erakutsi** (10); **denei erakutsi** (8); **dezakeela erakutsi** (18); **dezaketela erakutsi** (8); **direla erakutsi** (75); **direla erakutsi dute** (12); **direla erakutsi nahi** (15); **direla erakutsi zuten** (16); **dituela erakutsi** (19); **dohainak erakutsi** (10); **du erakutsi** (31); **duela erakutsi** (115); **duela erakutsi du** (45); **duela erakutsi nahi** (10); **duela erakutsi zuen** (23); **duen erakutsi** (13); **dugula erakutsi** (10); **dute erakutsi** (16); **dutela erakutsi** (36); **ederki erakutsi** (15); **ederra erakutsi** (10); **ek erakutsi** (12); **elkartasuna erakutsi** (25)

erakutsi ahal (65); **erakutsi ahal izan** (20); **erakutsi ahal izango** (10); **erakutsi ahal izateko** (13); **erakutsi arren** (22); **erakutsi aurretik** (8); **erakutsi baitu** (35); **erakutsi baitute** (19); **erakutsi baitzuen** (14); **erakutsi behar** (353); **erakutsi behar da** (16); **erakutsi behar diegu** (10); **erakutsi behar du** (53); **erakutsi behar duela** (8); **erakutsi behar dugu** (24); **erakutsi behar dute** (28); **erakutsi behar izan** (16); **erakutsi behar zaio** (8); **erakutsi beharko** (112); **erakutsi beharko du** (44); **erakutsi beharko dute** (15); **erakutsi beharra** (19); **erakutsi bere** (8); **erakutsi berri** (8); **erakutsi bezala** (28); **erakutsi da** (16); **erakutsi dauku** (12); **erakutsi daukute** (16); **erakutsi didate** (11); **erakutsi die** (19); **erakutsi digu** (74); **erakutsi digute** (52); **erakutsi dio** (55); **erakutsi dion** (8); **erakutsi diot** (14); **erakutsi diote** (22); **erakutsi dit** (64); **erakutsi ditu** (51); **erakutsi dituen** (11); **erakutsi dituzte** (23); **erakutsi dizkio** (11); **erakutsi du** (658); **erakutsi du azken** (9); **erakutsi du bere** (16); **erakutsi du eta** (14); **erakutsi du ez** (8); **erakutsi dudan** (8); **erakutsi duela** (45); **erakutsi duelako** (19); **erakutsi duen** (156); **erakutsi duen bezala** (13); **erakutsi duen jarrera** (11); **erakutsi duena** (14); **erakutsi duenez** (18); **erakutsi dugu** (84); **erakutsi dugun** (40); **erakutsi dugun bezala** (24); **erakutsi dugunez** (12); **erakutsi dut** (14); **erakutsi dute** (356); **erakutsi dute beren** (8); **erakutsi dutela** (21); **erakutsi dutelako** (9); **erakutsi duten** (85); **erakutsi duten bezala** (8); **erakutsi dutena** (8); **erakutsi dutenak** (8); **erakutsi dutenez** (16); **erakutsi duzu** (12)

erakutsi edo (9); **erakutsi egin** (52); **erakutsi egin behar** (10); **erakutsi egiten** (15); **erakutsi ere** (23); **erakutsi eta** (155); **erakutsi ez** (49); **erakutsi gabe** (82); **erakutsi genuen** (14); **erakutsi gura** (13); **erakutsi izan** (59); **erakutsi izan du** (11); **erakutsi izana** (8); **erakutsi nahi** (555); **erakutsi nahi du** (46); **erakutsi nahi dugu** (31); **erakutsi nahi dut** (10); **erakutsi nahi dute** (35); **erakutsi nahi izan** (119); **erakutsi nahi izaten** (8); **erakutsi nahi nion** (8); **erakutsi nahi nuen** (8); **erakutsi nahi zuen** (14); **erakutsi nahian** (47); **erakutsi nahiko** (26); **erakutsi nahiko du** (9); **erakutsi nahirik** (12); **erakutsi nahiz** (11); **erakutsi nien** (9); **erakutsi nion** (63); **erakutsi nizkion** (10); **erakutsi nuen** (18); **erakutsi ohi** (42); **erakutsi omen** (10); **erakutsi ondoren** (39); **erakutsi ordez** (8); **erakutsi ostean** (13); **erakutsi zen** (8); **erakutsi zer** (12); **erakutsi zidan** (176); **erakutsi zidaten** (22); **erakutsi zien** (77); **erakutsi zieten** (9); **erakutsi zigun** (80); **erakutsi ziguten** (36); **erakutsi zion** (252); **erakutsi zionean** (8); **erakutsi zioten** (57); **erakutsi zituen** (90); **erakutsi zituzten** (42); **erakutsi zizkidan** (42); **erakutsi zizkien** (20); **erakutsi zizkieten** (10); **erakutsi zizkigun** (18); **erakutsi zizkion** (62); **erakutsi zizkioten** (10); **erakutsi zizun** (9); **erakutsi zuela** (25); **erakutsi zuelako** (11); **erakutsi zuen** (872); **erakutsi zuen atzo** (29); **erakutsi zuen bere** (19); **erakutsi zuen berriro** (11); **erakutsi zuen bezala** (14); **erakutsi zuen eta** (16); **erakutsi zuen ez** (11); **erakutsi zuen jarrera** (9); **erakutsi zuena** (11); **erakutsi zuenez** (9); **erakutsi zuten** (337); **erakutsi zuten atzo** (20)

ere erakutsi (138); **ere erakutsi behar** (9); **ere erakutsi du** (9); **ere erakutsi gabe** (9); **ere erakutsi zuen** (16); **esperientziak erakutsi** (11); **eta erakutsi** (128); **eta erakutsi egin** (14); **eta erakutsi nahi** (13); **eta garbi erakutsi** (14); **eta hala erakutsi** (14); **ez dagoela erakutsi** (10); **ez du erakutsi** (19); **ez duela erakutsi** (10); **ez erakutsi** (8); **ez zuen erakutsi** (13); **ezer erakutsi** (22); **gabe erakutsi** (12); **gai dela erakutsi** (20); **gai direla erakutsi** (10); **gai garela erakutsi** (8); **gai zela erakutsi** (8); **gaitasuna erakutsi** (31); **garbi erakutsi** (43); **garbi erakutsi du** (11); **garbi erakutsi zuen** (9); **garela erakutsi** (21); **garela erakutsi dugu** (10); **gauza asko erakutsi** (11); **gehiago erakutsi** (30); **gehiagotan erakutsi** (9); **gogoa erakutsi** (18); **gorria erakutsi** (8); **gutuna erakutsi** (8); **gutxi erakutsi** (21); **guztia erakutsi** (11); **guztiak erakutsi** (11); **haiek erakutsi** (8); **hala erakutsi** (34); **hala erakutsi du** (10); **handia erakutsi** (73); **handia erakutsi du** (16); **handia erakutsi dute** (12); **handia erakutsi zuen** (13); **handia erakutsi zuten** (8); **handiagoa erakutsi** (18); **handiak erakutsi** (11); **handirik erakutsi** (19); **hark erakutsi** (10); **harrigarria erakutsi** (10); **harro erakutsi** (11); **haserrea erakutsi** (11); **hasieratik erakutsi** (15); **hau erakutsi** (10); **hobea erakutsi** (14); **hori erakutsi** (64); **hori erakutsi nahi** (16); **horiek erakutsi** (15); **horixe erakutsi** (12); **horrek erakutsi** (20); **horrela erakutsi** (12); **horretan erakutsi** (8); **hortzak erakutsi** (45); **hura erakutsi** (12)

ikerketek erakutsi (9); **indarra erakutsi** (20); **inori erakutsi** (8); **interesa erakutsi** (10); **izaera erakutsi** (8); **izan erakutsi** (9); **izugarria erakutsi** (11); **jadanik erakutsi** (9); **jarrera erakutsi** (21); **jarrera ona erakutsi** (9); **joera erakutsi** (8); **joko ona erakutsi** (9); **kontra erakutsi** (8); **maila bikaina erakutsi** (9); **maila erakutsi** (39); **maila ona erakutsi** (22); **nabarmena erakutsi** (8); **nagusitasuna erakutsi** (14); **nik erakutsi** (9); **niri erakutsi** (8); **nola erakutsi** (14); **nork erakutsi** (8); **ona erakutsi** (82); **ona erakutsi du** (11); **ona erakutsi zuen** (13); **ona erakutsi zuten** (9); **ondo erakutsi** (9); **onena erakutsi** (15); **ongi erakutsi** (26); **orain arte erakutsi** (17); **orain erakutsi** (11); **osoa erakutsi** (20); **paperak erakutsi** (10); **paregabea erakutsi** (8); **polita erakutsi** (10); **prest dagoela erakutsi** (10); **proposizioan erakutsi** (11); **sendoa erakutsi** (8); **zabala erakutsi** (8); **zegoela erakutsi** (15); **zela erakutsi** (66); **zela erakutsi nahi** (8); **zela erakutsi zuen** (27); **zelaian erakutsi** (8); **zen erakutsi** (13); **zer erakutsi** (33); **zerbait erakutsi** (32); **zeudela erakutsi** (8); **zirela erakutsi** (25); **zuela erakutsi** (23); **zuela erakutsi zuen** (10); **zuen erakutsi** (25)

bat erakutsiko (33); **batean erakutsiko** (8); **berak erakutsiko** (14); **bidea erakutsiko** (13); **dela erakutsiko** (9); **denborak erakutsiko** (8); **erakutsia da** (11); **erakutsia izan** (21); **erakutsia izan da** (8); **erakutsia izanen** (8); **erakutsia zion** (9); **erakutsia zuen** (15); **erakutsiak dira** (13); **erakutsiak izan** (9); **erakutsiak izanen** (9); **erakutsiko al** (10); **erakutsiko da** (15); **erakutsiko diat** (18); **erakutsiko die** (10); **erakutsiko diet** (11); **erakutsiko digu** (22); **erakutsiko dio** (13); **erakutsiko dira** (37); **erakutsiko ditu** (66); **erakutsiko dituzte** (82); **erakutsiko dizkigu** (8); **erakutsiko dizkizut** (12); **erakutsiko dizu** (15); **erakutsiko dizudan** (10); **erakutsiko dizuet** (11); **erakutsiko dizut** (68); **erakutsiko du** (91); **erakutsiko dudan** (10); **erakutsiko dudan bezala** (10); **erakutsiko duen** (17); **erakutsiko dugu** (11); **erakutsiko dut** (18); **erakutsiko dute** (66); **erakutsiko ez** (10); **erakutsiko luke** (18); **erakutsiko zidan** (9); **erakutsiko ziola** (11); **erakutsiko zion** (9); **erakutsiko zuela** (10); **erakutsiko zuen** (13); **ere erakutsiko** (13); **eta erakutsiko** (25); **horrek erakutsiko** (12); **lanak erakutsiko** (25); **lanak erakutsiko dituzte** (13); **neuk erakutsiko** (8); **nik erakutsiko** (23); **obrak erakutsiko** (14); **oraintxe erakutsiko** (9)

arte erakutsitako (17); **aurrean erakutsitako** (9); **bat erakutsiz** (43); **dela erakutsiz** (17); **direla erakutsiz** (10); **erakutsiriko joko** (10); **erakutsitako jarrera** (45); **erakutsitako joko** (8); **erakutsitako maila** (14); **erakutsitako nagusitasuna** (9); **erakutsiz eta** (21); **erakutsiz gero** (10); **erakutsiz nola** (9); **erakutsiz zer** (10); **ere erakutsiz** (11); **eta erakutsiz** (9); **handia erakutsiz** (14); **hortzak erakutsiz** (33); **kontra erakutsitako** (9); **orain arte erakutsitako** (15); **partidetan erakutsitako** (8); **zela erakutsiz** (13)

balioa erakusteko (8); **bat erakusteko** (16); **batean erakusteko** (8); **bere maila erakusteko** (8); **bidea erakusteko** (12); **dagoela erakusteko** (10); **dela erakustea** (17); **dela erakusteko** (64); **den erakusteko** (20); **dira erakusteko** (9); **direla erakustea** (11); **direla erakusteko** (13); **duela erakusteko** (17); **duen erakusteko** (10); **dutela erakusteko** (11); **elkartasuna erakusteko** (9); **erakustea baino** (10); **erakustea da** (29); **erakustea eta** (11); **erakustea ez** (9); **erakustea izan** (10); **erakustea nahi** (8); **erakusteaz gain** (17); **erakusteko asmoz** (12); **erakusteko aukera** (70); **erakusteko aukera izango** (13); **erakusteko aukerarik** (8); **erakusteko egin** (9); **erakusteko esan** (8); **erakusteko eskatu** (31); **erakusteko eta** (32); **erakusteko ez** (18); **erakusteko garaia** (10); **erakusteko gogoa** (9); **erakusteko nola** (9); **erakusteko parada** (14); **erakusteko zer** (9); **eta erakustea** (12); **eta erakusteko** (30); **ez erakustea** (16); **ez erakusteko** (21); **garela erakusteko** (10); **hori erakustea** (11); **hori erakusteko** (19); **horiek erakusteko** (8); **lanak erakusteko** (8); **maila erakusteko** (24); **zela erakusteko** (15); **zen erakusteko** (9); **zuela erakusteko** (9)

argazkiak erakusten (8); **argi erakusten** (144); **argi erakusten du** (46); **argi erakusten dute** (43); **argi erakusten zuen** (8); **argia erakusten** (8); **argiki erakusten** (11); **ari da erakusten** (9); **ari dela erakusten** (8); **aski erakusten** (8); **asko erakusten** (20); **aurpegia erakusten** (8); **aurrean erakusten** (11); **bat erakusten** (145); **bat erakusten digu** (9); **bat erakusten du** (29); **bat erakusten zuen** (13); **batek erakusten** (12); **batzuk erakusten** (10); **bera erakusten** (17); **berak erakusten** (49); **berak erakusten du** (23); **berriak erakusten** (15); **besterik erakusten** (12); **bezala erakusten** (13); **bidea erakusten** (33); **bidez erakusten** (9); **bikaina erakusten** (10); **bizia erakusten** (8); **bizkarra erakusten** (13); **da erakusten** (23); **dagoela erakusten** (23); **dagoela erakusten du** (11); **daitekeela erakusten** (9); **datuek erakusten** (11); **daudela erakusten** (8); **dela erakusten** (98); **dela erakusten ari** (9); **dela erakusten du** (30); **dela erakusten dute** (14); **den erakusten** (26); **direla erakusten** (25); **dituela erakusten** (10); **du erakusten** (30); **duela erakusten** (40); **duela erakusten du** (17); **dute erakusten** (10); **dutela erakusten** (15); **ederki erakusten** (11); **emaitzak erakusten** (8); **emaitzek erakusten** (10)

erakusten ahal (9); **erakusten ari** (174); **erakusten ari da** (44); **erakusten ari den** (14); **erakusten ari dira** (20); **erakusten ari zen** (13); **erakusten aritu** (8); **erakusten badu** (11); **erakusten badute** (14); **erakusten baitigu** (10); **erakusten baitu** (43); **erakusten baitute** (26); **erakusten baitzuen** (15); **erakusten baitzuten** (8); **erakusten da** (40); **erakusten dauku** (10); **erakusten den** (16); **erakusten die** (13); **erakusten diete** (14); **erakusten digu** (165); **erakusten digun** (32); **erakusten diguna** (11); **erakusten digute** (56); **erakusten diguten** (9); **erakusten dio** (42); **erakusten dion** (9); **erakusten dira** (13); **erakusten dit** (27); **erakusten ditu** (83); **erakusten dituela** (8); **erakusten dituen** (37); **erakusten dituzte** (35); **erakusten dituzten** (20); **erakusten dizkigu** (22); **erakusten dizkigute** (12); **erakusten dizkio** (8); **erakusten du** (1021); **erakusten du bere** (21); **erakusten du euskal** (8); **erakusten du ez** (21); **erakusten du hori** (15); **erakusten du horrek** (12); **erakusten du nola** (11); **erakusten du zein** (15); **erakusten du zer** (14); **erakusten duela** (94); **erakusten duela esan** (8); **erakusten duelako** (22); **erakusten duen** (268); **erakusten duen bezala** (41); **erakusten duen moduan** (10); **erakusten duena** (64); **erakusten duenez** (51); **erakusten dugu** (13); **erakusten dut** (8); **erakusten dute** (422); **erakusten dute ez** (9); **erakusten dutela** (45); **erakusten dutelako** (12); **erakusten duten** (173); **erakusten duten bezala** (23); **erakusten duten moduan** (10); **erakusten dutena** (10); **erakusten dutenak** (30); **erakusten dutenez** (48); **erakusten ere** (9); **erakusten eta** (23); **erakusten ez** (73); **erakusten ez duen** (9); **erakusten ez zuen** (8); **erakusten hasi** (26); **erakusten hasi zen** (9); **erakusten omen** (16); **erakusten saiatu** (10); **erakusten saiatuko** (20); **erakusten saiatzen** (11); **erakusten zidala** (8); **erakusten zidan** (23); **erakusten zien** (18); **erakusten zigun** (15); **erakusten zion** (50); **erakusten zioten** (8); **erakusten zituen** (60); **erakusten zituzten** (32); **erakusten zizkidan** (15); **erakusten zizkion** (15); **erakusten zuela** (34); **erakusten zuen** (271); **erakusten zuena** (21); **erakusten zuenean** (8); **erakusten zutela** (15); **erakusten zuten** (131)

ere erakusten (57); **ere erakusten du** (9); **esperientziak erakusten** (21); **eta erakusten** (45); **eta garbi erakusten** (33); **eta horrek erakusten** (30); **ez du erakusten** (22); **ez dute erakusten** (8); **ez zuen erakusten** (13); **gabe erakusten** (11); **garbi erakusten** (79); **garbi erakusten du** (25); **garbi erakusten dute** (15); **gehiago erakusten** (18); **gisa erakusten** (9); **gogoa erakusten** (8); **gutxi erakusten** (10); **guztia erakusten** (9); **guztiak erakusten** (18); **guztiek erakusten** (13); **guztiek erakusten dute** (9); **haiek erakusten** (9); **hala erakusten** (27); **hala erakusten dute** (8); **handia erakusten** (31); **handia erakusten du** (8); **handiagoa erakusten** (15); **harro erakusten** (15); **historiak erakusten** (15); **honek erakusten** (42); **honek erakusten du** (22); **hori erakusten** (40); **hori erakusten du** (13); **horiek erakusten** (26); **horiek erakusten dute** (15); **horrek argi erakusten** (12); **horrek berak erakusten** (8); **horrek erakusten** (197); **horrek erakusten baitu** (8); **horrek erakusten digu** (13); **horrek erakusten du** (149); **hortzak erakusten** (15); **indarra erakusten** (12); **inkestek erakusten** (10); **interesa erakusten** (10); **irudiak erakusten** (14); **izaera erakusten** (9); **izanak erakusten** (15); **izanak erakusten du** (13); **jarrera erakusten** (12); **jarrerak erakusten** (9); **joera erakusten** (10); **k erakusten** (8); **lanak erakusten** (9); **maila erakusten** (14); **maila ona erakusten** (8); **ona erakusten** (18); **ongi erakusten** (30); **ongi erakusten du** (12); **posible dela erakusten** (10); **zela erakusten** (27); **zela erakusten zuen** (8); **zen erakusten** (9); **zer erakusten** (12); **zera erakusten** (13); **zerbait erakusten** (18); **zirela erakusten** (10); **zuela erakusten** (14); **zuen erakusten** (19)

du erakusterat (8); **erakustera emaiten** (23); **erakustera eman** (11); **erakustera ematen** (10); **erakusterat emaiten** (26); **erakusterat eman** (46); **erakusterat eman du** (14); **erakusterat emana** (37); **erakusterat emana izan** (9); **erakusterat emanez** (13)

---

erakutsi[2] **1** *iz* erakustea; irakaspena. ik **erakuspen**.

Gero eta istilu handiagoetan sartzen ari nintzen, zaputz moldakaitzaren **erakutsiak** eginez. Fernando Rey

Ikusten al dituzu nire **erakutsien** ondorioak? "Hezitzaile" burgesek hitzez hitz jarraitu zituzten maisuaren **erakutsiak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erakutsia emateko, berak kendu dio lehenengo pota Matilderi, sari gisa. Itziar Otegi

Hitz hura horrela ahoskatzea dotoreziaren **erakutsia** iruditzen zitzaion gure amonari. Fernando Rey

Arrosek erdietsi zuen dorrexketako barrandariak edo plazaren defentsan lanen bat zuten gainerakoak halako **erakutsietatik** salbuestea, berdin asteguna ala igandea izan. Aingeru Epaltza

Joan zaitez Aita santuarengana, eta Jainkoaren maitasunagatik eta bere **erakutsiez** mundua utzarazi zidan San Frantzisko haren morroiaren maitasunagatik, erregutu

iezaiozu aska nazala eskumikutik eta itzul diezadala Ordenako abitua. Askoren artean

2 *(izenondo*

Zer **erakutsi on** eman dezake horrelako batek eta zer sakramentu egin. Askoren artean

Jakin behar dena da horren guztien inguruan hausnartzen eta **erakutsi onak** aintzat hartzen. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Lisboan" inondik ere ohikoa ez den garbitasun-**erakutsi** hori aski ez, esku artean erratza ikusi behar izan nion, ene eskariari ezaditua egiteko asmo tinkoa zuela konprenitzeko. Aingeru Epaltza

Guztiz egoki da zure aldetik, Hamlet, dolu-**erakutsiok** eskaintzea zeure aitari. Juan Garzia

Maite-**erakutsi** gehitxo egiten du damak, aukeran. Juan Garzia

Baina nola hartu du mutilaren bihotz-**erakutsia**? Juan Garzia

4 ***erakutsian utzi***

Horiek guztiek zientzia eta teknologiaren garapen eta garaipenaren ispilu dira eta **erakutsian uzten** dute zenbat ikasteko, inguruko munduaz zenbat jakiteko, gai izan garen mendearen abaroan. Pello Salaburu

Bai baitago hor, inork ere aipatu ez arren, halako itun ezkutu bat, soinekoaren binperra **erakutsian uztea** debekatzen diguna. Pello Salaburu

Teknika honek gaur arte iraun du, eta komunisten iturritik edan dutenek askotan dute jarrera hori, batera edo bestera **erakutsian uzten** dutena. Pello Salaburu

Horiek **uzten** dute **erakutsian**, ikusiko dugun bezala, nora joan daitekeen gizakia eta, hartara jarriz gero, zer egin dezakeen. Pello Salaburu

---

erakutsizale *iz* adierazten dena erakusten zalea dena.

Simoni bere nagusitasuna **erakutsizale** delako, eta aukera ikusten duen oro bere garaipen zerrenda handitzen saiatuko delako. Berria - Kirola

---

erakutstoki ik **erakustoki**.

---

eraldagarri *izond* eralda daitekeena.

Positibotasunen a priori ez da bakarrik denborazko sakabanaketa baten sistema; bera **eraldagarria** den multzo bat da. Xabier Arregi

Objektu **eraldagarria** (hots, natura), ez da hortaz kanpo objektu bat, gizarteari (artifizialtasunari) kontrajartzerik legokeen zera, bere baitan ahalgarritasun teknikoaren marka duena baizik. Berria - Gaiak

Materia materia da, ez noble eta ez doilor, infinituki **eraldagarria**, eta ez du batere axola haren etorki hurbilak. Juan Garzia

---

eraldaketa **1** *iz* eraldatzea.

Gibela baita prozesagune nagusia elikagaiak deskonposatu eta eraldatzeko eta **eraldaketa** horretatik gorputzaren funtzionamendurako behar diren substantzia konplexuak ateratzeko. Irene Aldasoro

Niri ere harrigarria egiten zitzaidan **eraldaketa** ikustea; goizean eskuetako dardarak salatzen zuen izaki babesgabe horretatik, arratsaldean masak adoretzen zituen berbaldun jori eta, itxuraz, seguru horretara. Jon Alonso

Hona hemen gure sailkapenerako erabili ditugun indar lerro nagusiak: errepikapena, antolaketa, **eraldaketa**, aukeraketa eta metahizkuntza. Iñaki Arranz

Hemen planteatzen ari den aldaketa **eraldaketa** in-te-gra-la da. Txema Ramirez de la Piscina

Harremanak, erregulartasunak eta **eraldaketak**. Xabier Arregi

Subjektu-predikatu eskema batetik ateratako **eraldaketa** batzuen bidez. Xabier Arregi

Agian, bazen justizia poetiko bat mapa estrategikoaren **eraldaketa** honetan. Iñaki Mendiguren

Gertatu zitzaionaren arabera bere burua berriro definitzen hasi zen -fisiologia, psikologia eta estetika aldetik-, eta balioen **eraldaketa** ekarri zion horrek. Xabier Olarra

Estetikan gertatzen den **eraldaketa** hori, halere, mugimendu filosofiko handiago baten zati bat da, hain zuzen XVII. mendeaz geroztik giza izaeraz eta ezagutzaren mugez arduratzera datorrenarena. Askoren artean

Nola zehaztu jarraitasun-eza pentsatzea zilegitzen duten kontzeptuak (atalasea, haustura, ebakidura, mutazioa, **eraldaketa**)? Xabier Arregi

Egiaztatuko balitz diziplina historiko guztietan planteatzen dela jarraitasun-ezen arazoa, hala nola, sistemena eta **eraldaketena**, sailena eta atalaseena, [...]. Xabier Arregi

Merkataritzan oso nazioartekotua dago gaur, eta orobat dago nazioarteko finantzen zenbait mekanismorekin lotua, baita lehengaien ekoizpeneko edo **eraldaketako** ekonomiekin ere. Koro Navarro

Gertu dagoelako errepikapenerako, **eraldaketarako**, suspertzerako. Xabier Arregi

SPRI Industri Sustapen eta **Eraldaketarako** Baltzuak erraztu egin nahi du ezinduek enpresa eta elkarteen webguneetara sartzeko dituzten zailtasunak. Berria - Euskal Herria

Bai horrelako metamorfosia guztiz ezinezkoa delako, bai ez duelako izan **eraldaketa** hau gauzatzeko indarra. Xabier Arregi

Giza zelulak eremu elektromagnetikoen eraginpean jarri dituzte, eta zeluloi eragindako **eraldaketak** aztertu dituzte. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Langune askotan enpleguen **eraldaketa** handia izan da: lanpostu tradizionalak desegin eta beste kontratu-lotura duten lanpostuak sortu dira, are baldintza kaskarragoekin. Iñaki Heras

SPRI Industri Sustapen eta **Eraldaketarako** Baltzuak erraztu egin nahi du ezinduek enpresa eta elkarteen webguneetara sartzeko dituzten zailtasunak. Berria - Euskal Herria

Elikagai transgenikoei dagokienez, **eraldaketa** genetikoa «oso arriskutsua» dela ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Datozen urteotan teknologia alorrean egingo diren aurrerapausoak kontuan izanda, enpresek egingo dituzten **eraldaketa** teknologikoak, **eraldaketa** organizatiboak eta **eraldaketa** estrategikoak nolakoak izango diren zehaztuko ditu. Berria - Ekonomia

Perspektiba **eraldaketa** geometriko bat da; hiru dimentsioko espazioa bi dimentsioko espazio baten (gainazal plano baten) gainera proiektatzen da. Josu Zabaleta

Proiekzioak irudi baten **eraldaketa** etengabea erakusten du. Berria - Kultura

Nola gauzatzen da energia psikikoaren **eraldaketa** handi hori? Ingurumenaren **eraldaketa** eta moldaketa etengabean oinarritzen diren praktika sozialen baitan. Iñaki Mendiguren

Onartu behar dela, bere apaltasun enpirikoan, gertaeren, erregulartasunen, harremanen, aldaketa zehatz batzuen, **eraldaketa** sistematikoen gune legez. Xabier Arregi

Garapenak ekonomiaren eta gizartearen **eraldaketa** progresibo bat dakar berekin. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Giltzurrunak arduratzen dira prozesu horretarako behar diren **eraldaketa** kimikoez. Irene Aldasoro

Nazio eraikuntza eta **eraldaketa** soziala, Euskal Herria ezkerretik eraikiz. Berria - Harian

Kontua izango da jakite historikoaren eremuan burutzear dagoen **eraldaketa** autoktono baten hastapenak eta ondorioak zabaltzea. Xabier Arregi

Adarren muturrean, edo gutxienez sasiarte oso baten zeharkatzean, berraurkituko ditu "aurkikuntzak" (fosilen sailak, esaterako), **eraldaketa** kontzeptualak, (esaterako, generoaren definizio berria), [...]. Xabier Arregi

Hamaikatxo erabilera eta **eraldaketa** ahalezkotarako. Xabier Arregi

Ez da kanpokotasunaren forma iraunarazia, dagoeneko idatzitakoaren arututako **eraldaketa**. Xabier Arregi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Produkzio prozesu guztietan, natur baliabideak dira **eraldaketa**-gai diren objektuak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Askotarikoak dira **eraldaketaren** moduak. Iñaki Arranz

Dagoeneko jakin badakigu globalizazioaren fenomenoarekin baterako **eraldaketa**-sistema konplexu bat badela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Globalizazioak eta teknologia berriek bultzatutako «**eraldaketa** krisia» da industriarena. Berria - Ekonomia

Hori oso bitxia da, binomio paradoxiko bat ezartzen baita; alde batetik **eraldaketa** planteamendu sakon eta utopiko bat, eta, bestetik, horri lotuta, jarrera praktiko bat. Iñaki Heras

Historikotasunaren forma bakarrak eta berberak biltzen dituela egitura ekonomikoak, gizarte egonkortasunak, pentsamoldeen inertzia, ohikuntza teknikoak, jokaera politikoak, eta guztiei **eraldaketa**-mota bera ezartzen diela. Xabier Arregi

Eraldaketa prozesu horiek guztiek alor itxi mugatuak zabaldu egiten dituzte, sormen ahalmenak bakarrik mugatu ezin lezakeen eran. Iñaki Arranz

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zergez salbuesten zituen industria-**eraldaketarako** behar ziren lehengaiak. Koro Navarro

Honaino testu-**eraldaketarako** Queneauk eta OULIPOk erabili zituzten baliabideetako batzuk. Xabier Olarra

Hizkuntz **eraldaketa** bi bidetatik etorri zaigu: oharkabean egiten duenarena, eta oharkabean egiten duenaren plantak egiten dituenarena. Iñaki Arranz

Nik ere aitzinsolas honetan era berean hipotesi soil gisa aurkezten dut kritikan hipotesi harekin analogian azaldutako pentsakera-**eraldaketa**. Ibon Uribarri

Berak gertaera diskurtsibo sail batzuen eta beste gertaera **eraldaketa**, mutazio eta prozesu sail batzuen arteko artikulazio hastapena planteatzen du. Xabier Arregi

Halako nortasun-**eraldaketa** eta -berrantolaketak gu guztion baitan gertatzen dira, egunean zehar, rol nahiz ageriko nortasun batetik beste batera aldatzen garenean. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste eraldaketa (3); **eraldaketa bat** (5); **eraldaketa eta** (5); **eraldaketa horren** (3); **eraldaketa prozesu** (3); **eraldaketa soziala** (3); **eta eraldaketa** (7); **eta eraldaketarako** (4); **gizartearen eraldaketa** (3); **testu eraldaketarako** (3)

---

eraldakuntza 1 *iz* eraldaketa.

Cancha aldizkariaren 1945eko urtarrilaren 15eko zenbakiak "La transformación del pelotari" -Pilotariaren **eraldakuntza**- izenekoa dakar. Edorta Jimenez

Zerbaiten heriotza ez baita zerbaiten azkena, ezpada forma berrien -beraz, **eraldakuntzaren**- sorgunea, bilakabide berrien hastapena. Joxe Azurmendi

Eraldakuntzak mundu gobernantzako erakundeetan. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoekin)

Eraldakuntza optikoak. Josu Zabaleta

Gure "txakur molekular" horren baitan, ildo berean, urratsez urratseko **eraldakuntza** linealezko prozesutzat jotzen dira fenomeno biologikoak. Juan Garzia

Hirurogeita hamarreko urteetan, aldiz, euliaren baitan eragiten duen **eraldakuntza** morfologikoa dela-eta izango da garrantzitsua mutazio hori. Juan Garzia

Badu proteinak berariazko ezagutze-gune bat, eta hark gaitzen du, hain zuzen, konposatu jakin bat finkatu eta **eraldakuntza** kimikoa katalizatzeko. Juan Garzia

Bata, su-etena, mugagabea espazioan eta denboran; bestea gure etorkizuna erabakitzeko euskal herritar guztion eskubidea; eta hirugarren, **eraldakuntza** sozialerako oinarriak ezartzea. Berria - Euskal Herria

Eraldakuntza genetikoa, egundaino, negozioaren eskutik sartu da, eskrupulurik gabe, pazientziarik gabe, isiltasun, sekretu- eta misterio-giro ilunean, akaso ohiko kontraesan ofizialak ez desmuntatzeko, finantza-iturri behinenetako bat herri-diruak gorabehera, botere horretatik iragazita datorkiola gogoan izaki. Edorta Agirre

3 (hitz elkartuetan)

Hala eskala arkitektonikoan nola hirigintzaren nahiz lurralde-**eraldakuntzaren** eskalan. Santiago Iruretagoiena

---

eraldarazi, eraldaraz, eraldarazten du *ad* eraldatzera behartu.

Moderniaren hastapenetan badago esperientzia bat esperientziaren kontzeptua bera arras **eraldarazi** duena -filosofia grekoarekiko, adibidez-, esperientzia razional edo esperimentuaren esanahira ekarriz. Askoren artean

---

eraldatu, eralda, eraldatzen **1** da/du *ad* forma edo era aldatu. ik **antzaldatu**; **itxuraldatu; formaldatu**.

Hortik galdera: nola **eralda** dezake mutazio batek gorputzaren segmentu bat? Juan Garzia

Elikagai horiek, bere horretan, eskuarki guk kontsumi ditzagun egoki ez daudenez, **eraldatu** egin behar izaten ditugu. Edorta Agirre

Seruma **eraldatzeko** eta esne kondentsatua eta esne hautsa ekoizteko lantegi berria irekiko du Iparlatek Kantabrian. Berria - Ekonomia

Birusa **eraldatuz** hegazti gripearen aurka babesten duen proteina lortu dute. Berria - Gaiak

IAEAren txostenaren arabera, uranioa **eraldatzen** segitzen du oraindik Iranek. Berria - Mundua

Baina idazten hasi orduko, ideiak **eraldatu**, itxuratxartu egiten dira, eta dena faltsu bihurtzen. Eskarne Mujika

Banekien Lajosek ukitutako orok galdu egiten zuela jatorrizko izaera; **eraldatu** egiten zen, metal preziatuak antzinako aztien arragoetan bezala. Ander Irizar

Espazioen erabilera eta horiek hautemateko modua **eraldatu** du. Berria - Kultura

Eta idazleak zer botere dauka errealitatea moldatzeko edo **eraldatzeko**? Ana Urkiza

"Zazpi jauzi" ere dei geniezaioke testua **eraldatzeko** sistema honi. Xabier Olarra

Eskola eredua aldatuz, gizartea **eraldatuko** dugu. Berria - Harian

Euskal curriculumak gizartea **eraldatzeko** bitartekoa izan behar du, hots, pertsonen garapenerako bitarteko askatzaile bilakatu behar du, pertsona aske eta integralak heziz, eta sexuen arteko parekidetasunaren alde eginez. Berria - Euskal Herria

Seguru sentiarazten gintuztenak eta bidea markatzen zigutenak, gure bizitzaren eta bizitzeko moduen zutabeak, azken finean, aldatu, apurtu eta **eraldatu** egin direla. Ana Urkiza

-Pasioak ez dira amaitzen, **eraldatu** egiten dira -erantzun zenidan, ausardiaz. Lander Garro

Bi gazteak ailegatuz geroztik **eraldatu** egin da jatetxeko giroa. Monika Etxebarria

Horregatik, honela inoiz ezin da hipotesi bat egia demostratuan **eraldatu**. Ibon Uribarri

Orduan bi baieztapenen aurkakotasun kontraesankorra aurkakotasun dialektikoa besterik ez den batean **eraldatzen** da. Ibon Uribarri

Eguzki forma noble hartatik tenperatura apaleko bero forma endekatu horretara **eraldatzen** baita energia hori. Juan Garzia

Garai modernoetan, hiru izan dira medikuntzaren praktika **eraldatu** duten iraultzak. Irene Aldasoro

Hizkuntz osagaiak **eraldatzea** da hizkuntzarekin jolasteko aukeran dugun hirugarren metodoa. Iñaki Arranz

Objektuen errepresentazio denak, baita enpirikoak ere, adimenean bilatzen baitzituen, eta adimenaren errepresentazioak nahastu eta **eraldatzeko** zeregin mezprezagarria besterik ez baitzien utzi sentsuei. Ibon Uribarri

Eraldatuta topatu zituen kaleak eta auzoak, etxe asko ari ziren eraikitzen azken urteetan. Harkaitz Cano

Begi-bistakoa da **eraldatutako** materiala eta hura **eraldatzeko** lanabesak elkarren osagarriak direla. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mundua **eraldatu** nahi genuen, gogoratzen? Fernando Morillo

Sistemak **eraldatzen** duela gizakia (edo, bestela esanda, gizakia doitzen zaiola sistemari). Iñaki Heras

Jakin nahi dugu, adibidez, zer diren genoma **eraldatua** duten landareak eta bere kontsumoak kalteak ekar ote ditzakeen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

2 (adizlagunekin)

Europako Batzordeak azkartu egin nahi du «seguruak diren genetikoki **eraldatutako** organismoak» onartzeko prozedura. Berria - Harian

Vladimirren heriotzaren ondoren, enpresaz jabetu, kooperatiba bat osatu eta fabrika osoki **eraldatu** zuten langileek, etxetresna elektrikoak ekoizten hasteko. Iban Zaldua

Berpizkundearekin, sakonki **eraldatu** zen Mendebaldeko artea. Juan Garzia

Gizakiak berak dira gizartearen aurrerabidea sustatzen, gizartearen aberastasuna sortzen, zientzia eta teknologia garatzen eta, egiten duten lan itzelari esker, giza ingurumena bera etengabe **eraldatzen** dutenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Goserik nozitu ez dugulako aldarrikatzen dugu Mendebaldean genetikoki **eraldaturiko** elikagairik ez ekoiztea. Edorta Agirre

Egia da orduz geroztik errealitate komunikatiboa dezente **eraldatu** dela. Txema Ramirez de la Piscina

Argi dago sakonean **eraldatu** behar dela sistema kapitalista. Iñaki Heras

3 (era burutua izenondo gisa)

Atmosfera **eraldatuan** ontziratua. Edorta Agirre

Ikertzaile batzuen arabera, Garizumako baraua jatorriz hibernazio **eraldatu** bat besterik ez da, gero Elizak balio erlijiosoa eman ziona Errepikapen **eraldatua** ere deitu genezake. Xabier Olarra

Analitikotasunaren nozio **eraldatu** sinpleena Gottlob Frege-k aurkeztu zuena da. Askoren artean

Esan dezagun hauek pentsatzeko saialdiek (izan ere, pentsagarriak izan behar baitute) guk pentsamoldearen metodo **eraldatutzat** onartzen dugunaren frogarri bikaina eskuratzen dutela. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behera eraldatu (4); **eraldatu behar** (3); **eraldatu ditu** (3); **eraldatu du** (5); **eraldatu dute** (3); **eraldatu egin** (10); **eraldatu egin da** (3); **eraldatu egiten** (10); **eraldatu eta** (16); **eraldatu nahi** (4); **eraldatu ondoren** (4); **eraldatu zen** (6); **eraldatu zuen** (4); **eraldatutako arto** (4); **eraldatutako organismorik** (3); **eraldatutako produktuak** (5); **eraldatutako produktuen** (3); **eraldatzeko aukera** (5); **eraldatzeko eta** (5); **eraldatzen ari** (6); **eraldatzen da** (4); **ere eraldatu** (4); **eta eraldatu** (4); **eta eraldatzeko** (9); **genetikoki eraldatuta** (3); **genetikoki eraldatutako** (47); **genetikoki eraldatutako arto** (3); **genetikoki eraldatutako organismorik** (3); **genetikoki eraldatutako produktuak** (5); **genetikoki eraldatutako produktuen** (3); **gizartea eraldatzeko** (5); **goitik behera eraldatu** (4)

---

eraldatzaile **1** *izond/iz* eraldatzen duena.

Askok industria **eraldatzailean** lan egiten zuten. Berria - Gaiak

Berriz ere, azken batean, iraultza ala erreforma, ikuspegi **eraldatzaileen** betiko kontraesanaren isla. Iñaki Heras

Gogora ekartzen dena ez dela haurtzaroko errealitatea, baizik eta haurtzaroaren ikuspegi ukatzaile eta **eraldatzailea**. Xabier Olarra

Ezker **eraldatzaile** euskaldunaren ahotsa Madrilera eramateko genuen nahia ezin izan da bete. Berria - Euskal Herria

Ezkerreko alternatiba erradikal eta **eraldatzailean** izanen du erreferentzia. Berria - Euskal Herria

Ezertxo ere ez zezan jakin, berriz, gure, materiaren **eraldatzaileon**, bizimoduari buruz. Juan Garzia

Batzuetan, bost izarreko ostatu handiosa izan, elkarte gastronomiko umila izan, elikagaien tenplu horietan diharduen apaiz "profesionala" da **eraldatzailea** [...]; besteetan, militante amateur hutsa izaten da. Edorta Agirre

Sektore ez **eraldatzailearen** jarduera indizea 58,6 puntura heldu zen abenduan. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

Belarra jan ahal bagenu (eta animaliak jaki-**eraldatzailetzat** erabili beharrik izan ez) bost edo ha-mar aldiz handiagoa litzateke munduko proteina-hornia. Irene Aldasoro

Beren zina bide zen, metal-**eraldatzaileena**, alegia: hain zuen, ordea, nire labana zintzurretik gertu, egia baitzioen noski. Juan Garzia

---

eraldatze **1** era edo forma aldatzea.

Zer **eraldatze** oraindik historialarien eskura ez daudenak? Xabier Arregi

Entzun duzue zerbait noski Hamleten **eraldatzeari** buruz: hala deitu beharko, ezen ez kanpotik eta ez barnetik ez baitirudi lehenago zen hura. Juan Garzia

Batzuk petrolioaz elikatzen dira oso azkar, beste [bakterio] batzuek eragindako **eraldatzea** mantsoago gertatzen da, denetatik dago. Berria - Gaiak

Eraldatze baten bizipena, eta bizipen baten **eraldatzea**. Berria - Kultura

Presoek **eraldatze** politiko eta sozialetan parte hartzeko eskubidea dutela. Berria - Euskal Herria

Bi kasuetan, nortasun berria egituratzeko subjektoak **eraldatze** sakona jasaten du. Joseba Zulaika

SPE-ren bederatzigarren atal horretan abiatu zenaren ondorengo sakontze eta aberasteek eratorpen fonologikoaren **eraldatze** handiak ekarri zituzten. Lourdes Oñederra

Desagertzeko zorian dago haragijale txikia, bere habitataren **eraldatzeak** eta bisoi amerikarrak mehatxatuta. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gatazken kudeatze eta **eraldatze** eremuan lan egiten duten talde garrantzitsuek parte hartuko dute. Berria - Euskal Herria

Teknologia digitala agertu denez gero bideoartearen mundua aldatze eta **eraldatze** garaian dagoela adierazi zuen. Berria - Kultura

Beste gabe, literaturaren, artearen zein filosofiaren **eraldatze**-prozesua abian ipini zen. Askoren artean

Abiapuntutzat hartzen dugun elementua zein den (hitza, sigla, esaldia, atsotitza, beste hizkuntza bateko esakunea, liburu bateko pasartea...) eta aplikatzen diogun **eraldatze** eragiketa zein den (biltzea, banatzea, laburtzea, luzatzea...). Iñaki Arranz

---

eralgi, eralgi, eralgitzen **1** du *ad* dirua edo ondasunak xahutu. ik **irion; barreiatu; banatu; gastatu**.

Pobre eta erromesentzako ospitalea eraiki eta bertan **eralgi** zituen bere ondasunak. Askoren artean

-Heure aita libratzearren **eralgi** beharko dituk, ba, horko diruak. Edorta Jimenez

Bere ondasunetarik asko **eralgi** zuen herri-gudarostea armatzen eta gudari-saria ematen. Elizen arteko biblia

Zergatik **eralgitzen** dira egunero milaka milioi gerrarako eta ez da zentimo bat gordetzen medikuntzarako, artistentzat eta behartsuentzat? Josu Zabaleta

Zeure zorroan ezer ez daukazunean, ez gehiago txirotu mailegaturiko dirua jaietan **eralgiz**. Elizen arteko biblia

Gai honi txostengileak orrialde oso bat ematen dio, FBI ez baitago diruak edozertan **eralgitzeko** prest. Edorta Jimenez

Estatuko errazionamendu txartelak hartzen dituzten zorioneko gizakientzat da hori, eta ez gu bezala ezkutatuta dauden eta, dirua ez **eralgitzeko**, zortzi txartelen ordez merkatu beltzean lau erosten dituzten juduentzat. Josu Zabaleta

Dirua ura balitz bezala **eralgitzen** du. Oskar Arana

Herentzia **eralgi** dut. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Joan den aspaldian ahalegin handia egin da euskara batua osatze eta zehazte bidean, horretan erabili eta **eralgi** da indar guztia: aditza, hiztegia, gramatika... zorrotz eta sakon landu dira. Koldo Zuazo

Baina gu hemen zineaz edo antzerkiaz, are bizitzaz, ari ez garenez, esan behar duguna esateko denbora luzeago **eralgi** behar dugu. Jon Alonso

Maitasunezko arteari dagozkion gaueko ariketetan **eralgitzen** den denbora. Jon Alonso

---

eralgitze *iz* ondasunak xahutzea.

Nire bizikideen artean jendetasun gutxien dutenen iritzian opari horiek **eralgitze** hutsa baizik ez badira ere, eta opari horiek eginez gaizki hazten banaute ere, geroz eta harrituago geratzen dira. Josu Zabaleta

Jendearen irabaziak gehitzen diren era berberean areagotzen da diru-**eralgitzea**. Iñaki Heras

---

eralketa *iz* eralgitzea.

Epaileak ezetsi du, bestalde, dokumentuen faltsutze, ondasunen bidegabeko **eralketa**, eta influentzia trafikoengatik Euskara Kultur Elkargoak bien kontra eskatutakoa. Berria - Euskal Herria

---

eralki, eralki, eralkitzen du *ad* bahetu.

Etzalekuan moldatu da eta bere zurtzuilaren atzean dagoena, hegazti harraparia bezala zelatan dago, neskatxak bere kezkak kontzientziaren isuriaren arabera laxatu ahala, atzeman eta bere iritzi galbahean **eralkitzeko**. Gotzon Garate

---

eramaile *(orobat **eramale** g.er. eta **eremaile** g.er.)* **1** *iz* adierazten dena eramaten duen pertsona. ik **eroale**.

Gutunak eramanarazi nizkion, eta hartu-agiri bat egin zion **eramaileari**. Josu Zabaleta

Jada altzari-pieza gehienak, astunenak, igoak zituzten **eramaileek**, tarteka puxka txikiagoak ere bai. Eduardo Matauko

Pauma-luma bat, moda guztien kontrakoa baina **eramailearen** gustukoa. Jose Morales

Gaur ezin zara berri onaren **eramaile** izan; beste egunen batean bai, beharbada. Baina gaur ezin duzu berri onik eraman, hila baita erregearen semea. Elizen arteko biblia

Nire nekaldiaren ezaugarri diren zauriak eman dizkizut, nire ikurrinaren **eramaile** izan zaitezen. Askoren artean

Begira, hemen Aragorn Arathornen semea, Arnorko Dunedaindarren burua, Mendebaldeko armadako Kapitaina, Iparraldeko Izarraren **eramailea**, berriz landutako Ezpata erakusten duena. Agustin Otsoa

Hamar egun iragan ziren Eraztunaren **Eramailea** Raurosetik ekialderako bidean abiatu zenetik. Agustin Otsoa

Orduan zaldunetako batek erregearen bandera hartu zuen zutoihalaren **eramailea** izan ohi zen eta orain hilik zetzan Guthlafren eskutik, eta gora jaso zuen. Agustin Otsoa

Bestalde, sharia islamikoa ez zen garai berean erromatar legearen **eramaile** bakarra, ez biziena ere. Iñaki Mendiguren

Gerta daiteke gaixotasun genetiko hereditariorik ez izatea, baina anomaliaren baten **eramaile** izatea. Berria - Gaiak

Harro zaitez, beraz, jadanik seguru, gurutzearen aintzan, Kristoren ikurraren **eramaile** aintzatsu hori. Askoren artean

Gutuna ez ezik, haren **eramailea** ere harrapatu behar zuen traidoreak, beraz. Karlos Zabala

Bidaltzaileak Herakleorentzako oparitan eralgi nahi zuen dirua, hiru arraun-lerroko itsasontziak egiteko eman zuten **eramaileek**. Elizen arteko biblia

Orduan irtenbiderik erosoena Euskadiko Ezkerrakoa egitea zen: [...], beti eta nonahi ongi ikusiak, progresismoaren bandera egoki guztien **eramaile**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikusgarri honetan, **eramaile** artistikoa Sylvain Luc izanen da. Herria

Kantongo (Txina) zientzialariek egiaztatu dute basakatuak eta azeriak ere pneumonia atipikoaren birus **eramaileak** izan daitezkeela. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kontua da mundu guztiak joan nahi duela txalupari edo anda-**eramaile**, zeren, hilerriaren ondoan, hor nonbait, egunotan paratu berri baita puteen auzoa. Jon Alonso

Berehalaxe hurbildu zitzaizkigun maleta-**eramaileak**. Gotzon Garate

Jaffer-en ametsa handi denean pakete-**eramaile** ofiziala izatea da. Gotzon Garate

Mezu-**eramaileen** bidez bidali zizkieten gutunak, erregearen izenean idatziak eta beraren eraztunaz zigilatuak. Elizen arteko biblia

Zuzentzailea, aholkularia, irakurlea, kritikaria, administraria, kontu **eramailea**, promotorea, publizista. Berria - Kultura

Izan ere, oso izen ederra du fosforoak ("argi-**eramailea"** esan nahi du); fosforeszentea da. Juan Garzia

Bakterioei esker lortuak dira, hain zuzen honako hauek: geneen baitako gai ondoretasun-**eramaile** gisa azido desoxirribonukleiko (ADN) delakoak jokatzen zuen papera zehaztea. Juan Garzia

Lebitar-**eramaileen** buru zen Kenaiasek antolatu behar zuen kutxaren eramatea, oso iaioa baitzen. Elizen arteko biblia

Moriko izeneko erlijioso bat, Gurutze-**eramaileen** Ordenakoa, Asis inguruko erietxe batean zegoen gaixo. Berria - Kultura

San Frantziskok, Kristoren gurutzearen ikur-**eramaileak**, [...]. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Oraingoz koadernoak lortu ditu Bepek, eguneko liburuak eta liburu nagusiak batez ere, horiek behar baititu nire ahizpa kontu **eramaileak**. Josu Zabaleta

-Ene kupido postal-**eramaile** adiskidetsuak! Iñaki Mendiguren

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Partisano gazte bat, Pepponerentzat agindu-**eramaile** lanak egiten zituena Peppone mendian zebilen garaian. Koldo Biguri

5 ***boz-eramaile*** ik **bozeramaile**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baten eramaile (4); **boz eramailea** (3); **eramaile eta** (3); **eramaile izan** (4); **eramailea izan** (3); **eraztunaren eramailea** (5); **eraztunaren eramaileak** (4); **gurutze eramaileen** (3)

---

eramaki *(orobat **eramanki** g.er. eta **eremaki** g.er.)* **1** *adlag* eramaten.

Irudian, bidean aitzina zihoan begirada amultsuko ahuntz bat, sagar gorri bat bizkar gainean **eramaki**, pertsonaia malenkoniatsu baten aurretik. Joxan Elosegi

Txona eta Guridi pasatu ziren, erreminta kaja eta kable-luzagarri bat **eramaki**. Pablo Sastre

Egunean hiru aldiz, goiztirian, eguerdian, arrastirian, Frantziskotarren ordenako bi anaia ikusten zituen pasatzen, ogi eskale, zatiak otarre batean **eramaki**. Juan Garzia

Arnasean berean **eramaki**, eta ezin harrapa! Patziku Perurena

Eta hark **eramaki** izena, halere, eta izenak berekin zekarren guztia: ospea, itzala, dirua. Matías Múgica

Eta, ahal bezala, Lakarko inguruak, beti xixpa besaburuan **eramaki**, egunero xeheki begiratzeko agindu ziguten. Txillardegi

Etxeko bertze muturretik, Isabel Sanjoseren purrustada luzea: berak ere barnera nahi, ordu erdi **eramaki** itxarongelan eta lotsagarria izaki segurtasun indarrak hedabide jakin batekin erakusten ari ziren lagunkeria. Aingeru Epaltza

Haien begiak ezin ikusi, zoritxarrez, beraiek ere eguzki-betaurrekoak **eramaki**. Joxe Austin Arrieta

2 (aditz laguntzaileaz)

-Gizon honek dio aise ere arropa aberatsagoak **eramaki** zenituela orduan. Aingeru Epaltza

Auto lerro luze hartan bazen ere emazteño bat haur ukaiterat **eramaki** zutena Baionarat. Herria

Harrigarri! eta bizkitartean, eskalapoinkeri horiek, bertzen gainera, orai orgataraka heldu baitzaizkigu, badute "hobari" bat eta ez txarra: ez dute KO-OFIZIALISATZERIK, erroetarik beretik eginak-prest daude: FRANÇAIS OFFICIEL-erat **eramaki** gaituzte! Herria

---

eramale ik **eramaile**.

---

eraman, eraman, eramaten *(**27.427** agerraldi, **285** liburu eta **6.581** artikulutan; ETCn **226.909** agerraldi)* **1** du *ad* adierazten dena aldean hartuta joan; adierazten dena aldean hartuta joan, nonbait uzteko, norbaiti emateko; adierazten dena norabait helarazi; jasan, pairatu. ik **eroan**. *(ikus beheko konbinatorian* eraman *aditzaren agerraldi maizkoenak).*

2 ***aurrean eraman*** harrapatu, azpian hartu.

Harrabots sor bat entzun zen: tapoiak amor eman, eta ura putzura eta galeriara amildu zen zorrotzean, trena bere bagoi guztiekin **aurrean eraman**, eta lantokia txiki-txiki egin. Juan Garzia

Durangoko autopistan ordainsaria pagatzeko itxaroten zeuden auto batzuk **aurrean eraman** zituen kamioi aleman batek. Iñigo Aranbarri

Iparraldetik datoz, harrapatzen duten guztia **aurrean eramanez**. Juan Garzia

Auzune osoak hustu behar izan zituzten, urak **aurrean eramango** ez bazituen. Pello Zabala

Uraren izate gozoaren antz-antzekoa da, hau bat-batean uhol gainezkatuan abiatzen denean eta, euri ugarian handiturik, mendi goietatik urjauzi handian oldartzen denean, oihan zatiak eta zuhaitz osoak **aurrean eramanez**, zubirik sendoenek ere datorren uraren bat-bateko indarrari eutsi ezin diotela. Xabier Amuriza

Mendebaldekoa altxatu zuen indartsu, eta **aurrean eraman** zituen larrapoteak, Itsaso Gorriraino bultzatuz. Jose Antonio Mujika

Nestoriotar uhina altxatu eta erori egin zen, ondoren uhin monofisita etorri zen, eta ondoren uhin musulmana, dena bere **aurrean eraman** zuena. Iñaki Mendiguren

Kristau-aroko hogeigarren mendean, zientzia naturalak eta teknologiak dena **aurrean zeramatela** zirudienean, bazirudien "dunce" horiek garai batean nagusi izandako "alde klasikoan" gero eta gutxiago geratzen zirenen artean aurkitu behar zirela. Iñaki Mendiguren

Ibaiek gainez egiten dute, heriotzak, lehentxoago edo gerotxoago, bizidun guzti-guztiak **aurrean eramaten** ditu. Xabier Amuriza

3 ***aurretik eraman*** aurrean eraman.

Uholdeak dena **aurretik eramaten** duen bezala. Jon Alonso

Beste bi lagunekin arratsaldeko mezarako Karmeldarren elizara zihoala, Easo kalea gurutzatzean guardia zibilaren land rover batek jo, eta **aurretik eraman** zituen hirurak. Ramon Saizarbitoria

Urte hartako urrian, auto batek **aurretik eraman** zuen eta urte eta erdi luzea pasatu zuen osatzen. Berria - Kirola

Itsasoak, bere mugetatik gainez eginik, ez ditu lehia oldartsuagoz jaten lautadak, nola baititu Laertes gazteak, matxinada-uraldiz, **aurretik eramaten** berorren ofizialak. Juan Garzia

Tsunami-ak kostaldea suntsitzeaz gainera, askoren bizitzak zein beste askoren etorkizuneko ametsak ere **aurretik eraman** zituen. Berria - Mundua

Baina konturatzerako zezen baten oldarrak **aurretik eraman** zuen, lurrera jaurtiz ahoz behera eta beso bat erabat inmobilizatuz. Fernando Morillo

Hain ohiz kanpoko erabakiaz sartu zen emakume hura nire bizitzan, uholde bat balitz bezala, bidean aurkitzen zuèn guztia **aurretik zeramana**...! Joan Mari Irigoien

4 ***ezin eraman*** *iz* gorrotoa.

Gerra baino gehiago izan ziren hemen **ezin eramana** eta inbidia. Arantxa Iturbe

Eta oinazea, eta desamodioa, eta porrota, eta **ezin eramana**, eta huts-mina, eta gorrotoa... Horiek denak gizakiak erro-errotik bizi ditu; ez hala, piztiek. Karlos Linazasoro

Gu eta gure **ezin eramanak** dira, beharbada, gure literaturaren etsai nagusiak, baina kanpoan ez diot etsairik ikusten. Ana Urkiza

Bere burua ikusten zuen bakoitzean, **ezin eramana** sortzen omen zitzaion bere azalaren kolorearekin. Hasier Etxeberria

5 ***gaizki eraman*** gaizki hartu, gaitzitu.

Bai, oso **gaizki eraman** zuen senarrarena hasieran. Jokin Muñoz

Nik ere, beste guztiek edo gehienek bezala, **gaizki eraman** izan baitut aulkia. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

ahora eraman (62); **ahora eraman eta** (10); **ahora eraman zuen** (19); **airean eraman** (10); **aldean eraman** (13); **aldera eraman** (35); **aldera eraman zuen** (9); **aldiz eraman** (10); **anbulantzian eraman** (12); **arrastaka eraman** (73); **arrastaka eraman zuen** (14); **arte eraman** (8); **artean eraman** (17); **artean eraman zuten** (9); **asko eraman** (18); **atarira eraman** (12); **ateraino eraman** (9); **atxilo eraman** (9); **atxilotuta eraman** (21); **atxilotuta eraman zuten** (13); **atzera eraman** (23); **atzerantz eraman** (12); **atzo eraman** (14); **atzo eraman zuten** (9); **aurpegira eraman** (13); **aurrean eraman** (11); **aurrera eraman** (173); **aurrera eraman ahal** (18); **aurrera eraman nahi** (19); **aurrera eraman zituen** (8); **aurrera eraman zituzten** (10); **aurrera eraman zuen** (13); **aurrera eraman zuten** (27); **aurretik eraman** (13); **autoan eraman** (14); **auzitara eraman** (52); **auzitara eraman zuten** (8); **auzitegi nazionalera eraman** (11); **auzitegira eraman** (15); **azken muturreraino eraman** (9); **azpira eraman** (8); **ba eraman** (11); **ba eraman egin** (10); **babiloniara eraman** (20); **baina eraman** (14); **bakarrik eraman** (10); **barrena eraman** (13); **barruan eraman** (8); **barrura eraman** (28); **barrura eraman zuen** (8); **basurtuko ospitalera eraman** (28); **bat eraman** (155); **bat eraman behar** (16); **bat eraman du** (10); **bat eraman nahi** (10); **bat eraman ohi** (9); **bat eraman zuen** (31); **bat eraman zuten** (15); **batean eraman** (24); **batek eraman** (62); **batek eraman zuen** (21); **batengana eraman** (9); **batera eraman** (331); **batera eraman behar** (11); **batera eraman dute** (10); **batera eraman eta** (13); **batera eraman gintuen** (10); **batera eraman gintuzten** (10); **batera eraman ninduen** (24); **batera eraman ninduten** (19); **batera eraman zituen** (12); **batera eraman zituzten** (19); **batera eraman zuen** (40); **batera eraman zuten** (56); **bateraino eraman** (20); **batetik bestera eraman** (12); **batetik eraman** (13); **batzuetara eraman** (10); **batzuk eraman** (12); **behera eraman** (18); **belarrira eraman** (9); **berak eraman** (49); **berak eraman zuen** (10); **berarekin eraman** (49); **berarekin eraman zuen** (13); **bere etxera eraman** (23); **bere gelara eraman** (8); **berehala eraman** (20); **berekin eraman** (57); **berekin eraman zuen** (9); **berera eraman** (8); **bertan eraman** (12); **bertan eraman zuten** (8); **bertara eraman** (10); **besoetan eraman** (9); **bestera eraman** (15); **beti eraman** (14); **bezala eraman** (15); **bidetik eraman** (8); **bizirik eraman** (9); **bizkarrean eraman** (10); **bueltan eraman** (8); **bulegora eraman** (20); **burura eraman** (23); **bururaino eraman** (19); **dena eraman** (13); **denak eraman** (9); **donostia ospitalera eraman** (22); **donostiako ospitalera eraman** (15); **du eraman** (15); **dut eraman** (15); **edo eraman** (10); **egitera eraman** (36); **egoitzara eraman** (11); **egongelara eraman** (15); **elizara eraman** (8); **epailearen aurrera eraman** (22); **epaitegietara eraman** (9); **epaitegira eraman** (12); **era eraman** (13)

eraman ahal (119); **eraman ahal izan** (22); **eraman ahal izango** (21); **eraman ahal izateko** (50); **eraman aitzin** (8); **eraman arren** (18); **eraman arte** (18); **eraman aurretik** (20); **eraman baino** (14); **eraman baino lehen** (8); **eraman baitzuen** (21); **eraman baitzuten** (8); **eraman behar** (584); **eraman behar da** (9); **eraman behar dela** (10); **eraman behar dira** (11); **eraman behar dituzte** (8); **eraman behar du** (9); **eraman behar duela** (8); **eraman behar dugu** (14); **eraman behar izan** (191); **eraman behar izaten** (25); **eraman behar zuela** (9); **eraman behar zuen** (16); **eraman behar zutela** (8); **eraman behar zuten** (11); **eraman beharko** (85); **eraman beharko dituzte** (8); **eraman beharra** (33); **eraman beharrean** (25); **eraman beharreko** (16); **eraman beharrik** (10); **eraman daiteke** (12); **eraman dezake** (24); **eraman dezakeen** (13); **eraman dezakete** (10); **eraman dezakezu** (8); **eraman dezala** (8); **eraman dezan** (18); **eraman dezatela** (12); **eraman dezaten** (20); **eraman ditu** (123); **eraman dituela** (8); **eraman dituen** (25); **eraman ditut** (9); **eraman dituzte** (104); **eraman dituztela** (13); **eraman dituzten** (15); **eraman ditzake** (9); **eraman ditzan** (8); **eraman du** (272); **eraman duela** (9); **eraman duen** (56); **eraman duena** (8); **eraman dugu** (17); **eraman dut** (30); **eraman dute** (176); **eraman dute eta** (8); **eraman dutela** (16); **eraman duten** (44); **eraman duzu** (12); **eraman edo** (15); **eraman egin** (76); **eraman egin behar** (8); **eraman egin zian** (10); **eraman egin zuen** (9); **eraman egin zuten** (10); **eraman egingo** (10); **eraman egiten** (20); **eraman eraman** (10); **eraman ere** (20); **eraman eta** (374); **eraman eta bere** (8); **eraman eta bertan** (15); **eraman eta gero** (9); **eraman eta han** (14); **eraman ez** (61); **eraman ezak** (13); **eraman ezazu** (25); **eraman ezazue** (20); **eraman ezin** (17); **eraman ezina** (8); **eraman ezinez** (9); **eraman ezinik** (21); **eraman gabe** (27); **eraman gaitu** (40); **eraman gaituzte** (14); **eraman genituen** (15); **eraman genuen** (34); **eraman gintuen** (75); **eraman gintuzten** (60); **eraman itzazu** (10); **eraman itzazue** (9)

eraman izan (63); **eraman izana** (30); **eraman nahi** (316); **eraman nahi du** (19); **eraman nahi duen** (10); **eraman nahi dute** (22); **eraman nahi dutela** (8); **eraman nahi izan** (41); **eraman nahi zuen** (14); **eraman nahian** (12); **eraman nau** (66); **eraman naute** (12); **eraman nazazu** (40); **eraman ninduela** (9); **eraman ninduen** (249); **eraman ninduen gizonak** (8); **eraman ninduena** (9); **eraman ninduten** (123); **eraman nindutenean** (8); **eraman nion** (11); **eraman nituen** (30); **eraman nuela** (9); **eraman nuen** (146); **eraman ohi** (83); **eraman ohi zuen** (29); **eraman omen** (28); **eraman omen zuen** (11); **eraman ondoren** (28); **eraman ostean** (8); **eraman ote** (19); **eraman zaitu** (19); **eraman zaituzte** (17); **eraman zen** (8); **eraman zezakeen** (14); **eraman zezala** (13); **eraman zezan** (19); **eraman zezatela** (12); **eraman zezaten** (23); **eraman zintuen** (8); **eraman zion** (50); **eraman zioten** (22); **eraman zituela** (17); **eraman zituen** (431); **eraman zituen atzo** (10); **eraman zituen bere** (9); **eraman zituen eta** (8); **eraman zituztela** (24); **eraman zituzten** (538); **eraman zituzten atzo** (11); **eraman zituzten eta** (18); **eraman zituzten ospitalera** (15); **eraman zituztenean** (8); **eraman zitzan** (10); **eraman zitzaten** (12); **eraman zizkion** (12); **eraman zizkioten** (13); **eraman zuela** (35); **eraman zuelako** (8); **eraman zuen** (1267); **eraman zuen ahora** (8); **eraman zuen berarekin** (8); **eraman zuen bere** (20); **eraman zuen eskua** (11); **eraman zuen eta** (39); **eraman zuena** (27); **eraman zuenean** (12); **eraman zutela** (58); **eraman zutelako** (8); **eraman zuten** (1273); **eraman zuten arte** (9); **eraman zuten atzo** (25); **eraman zuten eta** (47); **eraman zuten ondoren** (8); **eraman zuten ospitalera** (10); **eraman zutenean** (34); **eraman zutenetik** (8)

erdira eraman (8); **ere eraman** (89); **ere eraman zuen** (10); **eremura eraman** (11); **erietxe batera eraman** (9); **erietxera eraman** (127); **erietxera eraman behar** (31); **erietxera eraman zituzten** (20); **erietxera eraman zuten** (58); **eritegira eraman** (16); **eskolara eraman** (11); **eskua eraman** (14); **eskua eraman zuen** (9); **eskuak burura eraman** (9); **espetxera eraman** (46); **espetxera eraman dute** (8); **espetxera eraman zuten** (18); **eta ahora eraman** (12); **eta arrastaka eraman** (20); **eta babiloniara eraman** (8); **eta berarekin eraman** (13); **eta berekin eraman** (10); **eta eraman** (152); **eta eraman egin** (23); **eta erietxera eraman** (14); **eta etxera eraman** (25); **eta ospitalera eraman** (21); **etxe batera eraman** (13); **etxera eraman** (198); **etxera eraman eta** (14); **etxera eraman nuen** (9); **etxera eraman zituen** (12); **etxera eraman zituzten** (11); **etxera eraman zuen** (28); **etxera eraman zuten** (46); **ez eraman** (26); **ezer eraman** (9); **ezin du eraman** (10); **ezin dut eraman** (14); **ezin eraman** (32); **ezin nuen eraman** (8); **ezin zuen eraman** (14); **ezpainetara eraman** (25); **ezpainetara eraman zuen** (8); **gabe eraman** (16); **gailurrera eraman** (8); **gainean eraman** (28); **gainera eraman** (10); **galdakaoko ospitalera eraman** (23); **gatibu eraman** (16); **gaztelura eraman** (9); **gehiago eraman** (14); **gela batera eraman** (22); **gelara eraman** (54); **gelara eraman zuen** (11); **gelara eraman zuten** (8); **gora eraman** (29); **gorpua eraman** (8); **gurutzetako erietxera eraman** (8); **gurutzetako ospitalera eraman** (32); **guztia eraman** (12); **guztiak eraman** (19); **haiek eraman** (9); **haizeak eraman** (30); **han eraman** (8); **handia eraman** (8); **handik eraman** (8); **handira eraman** (8); **hara eraman** (51); **hara eraman zuten** (9); **haraino eraman** (10); **harat eraman** (8); **hark eraman** (8); **hartara eraman** (10); **hartu eta eraman** (11); **hartuta eraman** (8); **hartzera eraman** (12); **hau eraman** (9); **helduta eraman** (13); **heriotzara eraman** (10); **herrestan eraman** (23); **herrira eraman** (10); **hilerrira eraman** (13); **hilobira eraman** (8); **hirira eraman** (12); **honek eraman** (8); **hori eraman** (12); **horregatik eraman** (10); **horrek eraman** (22); **horretara eraman** (19); **hura eraman** (16)

era eraman (11); **ikustera eraman** (24); **indarrez eraman** (8); **inora eraman** (10); **iruñ jauregira eraman** (18); **jerusalemera eraman** (15); **jokalari eraman** (11); **kanpora eraman** (37); **kanpora eraman zuen** (8); **kartzelara eraman** (38); **kartzelara eraman zuten** (11); **komisaldegira eraman** (8); **komisariara eraman** (11); **kontra eraman** (8); **kontseilura eraman** (8); **kuartelera eraman** (16); **kutxa eraman** (8); **lagun eraman** (17); **lagun eraman zituzten** (8); **larri eraman** (18); **larri eraman zuten** (11); **larri zaurituta eraman** (14); **legebiltzarrera eraman** (10); **leku batera eraman** (14); **lekura eraman** (27); **logelara eraman** (13); **lotuta eraman** (9); **lurraldera eraman** (9); **madrilera eraman** (24); **madrilera eraman zuten** (8); **mahaira eraman** (10); **mailara eraman** (8); **mariara eraman** (9); **mendira eraman** (8); **minbiziak eraman** (8); **muturreraino eraman** (25); **nafarroako ospitalera eraman** (11); **nagusira eraman** (14); **nazionalera eraman** (13); **nirekin eraman** (13); **nola eraman** (43); **nora eraman** (65); **nora eraman behar** (10); **nora eraman nahi** (11); **nora eraman zuten** (9); **norabait eraman** (8); **nork eraman** (11); **nuen eraman** (9); **ohera eraman** (22); **ondo eraman** (10); **ondora eraman** (20); **onez eraman** (24); **oso larri eraman** (9); **ospitale batera eraman** (10); **ospitalera eraman** (395); **ospitalera eraman behar** (74); **ospitalera eraman dute** (13); **ospitalera eraman zituzten** (54); **ospitalera eraman zuen** (17); **ospitalera eraman zuten** (172); **parisera eraman** (20); **pertsona eraman** (10); **polizia etxera eraman** (34); **praktikara eraman** (13); **preso eraman** (21); **presondegira eraman** (8); **santiago ospitalera eraman** (10); **saria eraman** (12); **soinean eraman** (11); **sukaldera eraman** (13); **tokira eraman** (11); **txiki batera eraman** (10); **ugari eraman** (8); **urak eraman** (16); **urrun eraman** (9); **urrunago eraman** (19); **urrunago eraman dituzte** (8); **urrutira eraman** (9); **zaurituta eraman** (28); **zaurituta eraman zituzten** (8); **zaurituta eraman zuten** (14); **zehar eraman** (13); **zentrora eraman** (9); **zer eraman** (16); **zerbitzura eraman** (8); **zergatik eraman** (11); **zerk eraman** (16); **zerura eraman** (9); **ziegara eraman** (13); **zinemara eraman** (13); **zuen eraman** (23); **zuten eraman** (12)

arrastaka eramanez (11); **aurrera eramandako** (12); **bat eramanen** (18); **berekin eramanez** (11); **eramanen ditu** (11); **eramanen du** (21); **eramanen dute** (21); **eramanen ote** (12); **eramanez eta** (11); **eramanez gero** (26); **herrestan eramanez** (10); **muturreraino eramanez** (8); **nora eramanen** (10)

aurrera eramango (45); **auzitara eramango** (24); **babiloniara eramango** (8); **bat eramango** (27); **batek eramango** (10); **batera eramango** (49); **berak eramango** (10); **berekin eramango** (14); **bihar eramango** (9); **deabruak eramango** (10); **deabruak eramango ahal** (9); **eramango ahal** (11); **eramango balu** (8); **eramango da** (8); **eramango dio** (11); **eramango dira** (10); **eramango ditu** (77); **eramango dituela** (16); **eramango dituen** (21); **eramango ditugu** (13); **eramango ditut** (20); **eramango dituzte** (74); **eramango dituztela** (9); **eramango dituzten** (14); **eramango dituzue** (9); **eramango du** (173); **eramango duela** (39); **eramango duen** (57); **eramango dugu** (25); **eramango dut** (43); **eramango dute** (138); **eramango dutela** (28); **eramango duten** (18); **eramango duzu** (8); **eramango ez** (14); **eramango gaitu** (29); **eramango gaituen** (29); **eramango gintuela** (8); **eramango gintuen** (10); **eramango gintuzke** (18); **eramango hau** (8); **eramango haut** (19); **eramango luke** (9); **eramango nau** (10); **eramango nauen** (8); **eramango nauzu** (8); **eramango nuen** (11); **eramango ote** (13); **eramango zaitu** (19); **eramango zaitut** (50); **eramango zaituzte** (21); **eramango zaituztet** (15); **eramango zituela** (15); **eramango zituen** (17); **eramango zituzten** (11); **eramango zuela** (43); **eramango zuen** (62); **eramango zutela** (21); **eramango zuten** (28); **ere eramango** (17); **eta etxera eramango** (9); **etxera eramango** (28); **europara eramango** (8); **galbidera eramango** (8); **haizeak eramango** (9); **hara eramango** (13); **inora eramango** (10); **izena eramango** (10); **lekura eramango** (10); **leloa eramango** (8); **lurraldera eramango** (8); **madrilera eramango** (8); **neuk eramango** (16); **neurekin eramango** (8); **nik eramango** (10); **nora eramango** (19); **nork eramango** (17)

ahora eramateko (12); **aurrera eramatea** (46); **aurrera eramateko** (195); **auzitara eramatea** (9); **auzitara eramateko** (12); **bat eramatea** (18); **bat eramateko** (15); **batera eramatea** (24); **batera eramateko** (36); **bestera eramateko** (8); **bururaino eramateko** (18); **eramatea baino** (8); **eramatea da** (23); **eramatea erabaki** (39); **eramatea erabaki du** (8); **eramatea erabaki zuen** (13); **eramatea ere** (9); **eramatea eta** (27); **eramatea ez** (9); **eramatea izango** (9); **eramatea lortu** (9); **eramatea nahi** (12); **eramatea zen** (10); **eramateko agindu** (34); **eramateko agindu zuen** (11); **eramateko agindua** (9); **eramateko ardura** (16); **eramateko asmoa** (38); **eramateko aukera** (28); **eramateko baimena** (11); **eramateko borondatea** (8); **eramateko esan** (16); **eramateko eskatu** (38); **eramateko eta** (37); **eramateko gai** (13); **eramateko gauza** (12); **eramateko keinua** (8); **eramateko prest** (19); **eta eramateko** (14); **etxera eramatea** (10); **etxera eramateko** (38); **ez eramatea** (14); **ez eramateko** (16); **gora eramateko** (11); **hori aurrera eramateko** (18); **kanpora eramateko** (9); **kontseilura eramatea** (18); **kontseilura eramateko** (8); **ospitalera eramateko** (10); **praktikara eramatea** (8); **praktikara eramateko** (8); **segurtasun kontseilura eramatea** (17)

aldean eramaten (14); **aldera eramaten** (9); **arrastaka eramaten** (10); **aurrera eramaten** (52); **aurrera eramatera** (9); **bat eramaten** (54); **bat eramaten zuen** (15); **batera eramaten** (53); **batetik bestera eramaten** (11); **berak eramaten** (12); **berarekin eramaten** (14); **berekin eramaten** (13); **bestera eramaten** (15); **bezala eramaten** (10); **eramaten ahal** (11); **eramaten ari** (62); **eramaten ari dira** (13); **eramaten bada** (10); **eramaten baitzuen** (9); **eramaten da** (20); **eramaten dira** (16); **eramaten diren** (9); **eramaten ditu** (76); **eramaten dituela** (11); **eramaten dituen** (12); **eramaten dituena** (8); **eramaten ditugu** (8); **eramaten ditut** (9); **eramaten dituzte** (72); **eramaten dituzten** (25); **eramaten du** (130); **eramaten duela** (12); **eramaten duen** (48); **eramaten duena** (11); **eramaten dut** (12); **eramaten dute** (66); **eramaten dutela** (8); **eramaten duten** (22); **eramaten eta** (21); **eramaten ez** (26); **eramaten gaitu** (38); **eramaten gaituen** (12); **eramaten gaituzte** (11); **eramaten genuen** (9); **eramaten gintuen** (15); **eramaten gintuzten** (8); **eramaten hasi** (27); **eramaten hasi zen** (11); **eramaten nau** (10); **eramaten ninduen** (43); **eramaten ninduten** (16); **eramaten nituen** (8); **eramaten nuen** (34); **eramaten omen** (13); **eramaten saiatu** (12); **eramaten saiatzen** (10); **eramaten utzi** (12); **eramaten utziko** (8); **eramaten zaitu** (24); **eramaten zen** (8); **eramaten zion** (9); **eramaten zituen** (95); **eramaten zituena** (8); **eramaten zituzten** (73); **eramaten zizkioten** (9); **eramaten zuela** (8); **eramaten zuen** (185); **eramaten zuen beti** (15); **eramaten zuten** (60); **ere eramaten** (24); **eta eramaten** (8); **etxera eramaten** (35); **gainean eramaten** (10); **guztia eramaten** (8); **guztiak eramaten** (8); **haizeak eramaten** (9); **hara eramaten** (14); **herrestan eramaten** (10); **ikustera eramaten** (11); **inora eramaten** (15); **muturreraino eramaten** (19); **nola eramaten** (12); **nora eramaten** (10); **ondo eramaten** (10); **ongi eramaten** (10); **pazientziaz eramaten** (8)

---

eramanarazi, eramanaraz, eramanarazten du *ad* eramatera behartu.

Gure ama gaixorik zegoen ohean mugitu ezinik, berriz gaixotu baitzen nik karabineroenera **eramanarazi** nuelako, eta ez zuelako batere ulertzen gurean gertatzen zena. Pello Lizarralde

Bortxaz **eramanarazi** zenituela herritarrak Donibaneko plazara. Aingeru Epaltza

Epaileak adierazi zuen behar adina froga zituela ni auzitegi gorenaren aurrera **eramanarazteko** eta hiru mila dolarreko fiantza ezarri zuen. Fernando Rey

Berehalaxe esan zuen gorpua ez zela utzi behar sukaldearen erdi-erdian; atzealdera **eramanarazi** zuen, osabak lo egiteko erabiltzen zuen gelaxka batera. Karlos Zabala

Iduri luke sos puxka baten irabazteko tirriak zernahitara **eramanarazten** duela gizona. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Biluzik eta soka bat lepotik zuela, **eramanarazi** zuen bere burua herriaren aurrean. Askoren artean

Jerusalemdik kanpora Zedron haraneko zelaietan erre ondoren [kulturako eginak zeuden tresna guztiak], Betelera **eramanarazi** zituen errautsak. Elizen arteko biblia

Fonografoaren platerean utziko du, biraka hasiko da; altzairuzko orratza saltoka eta kirrinka hasiko da ildoetan, eta ondoren ildoek, espiralean, diskoaren erdiraino behin **eramanarazirik**, amaiturik egonen da, *Some of these day*s kantatzen duen ahots erlastua betikoz isilduko da. Monika Etxebarria

Jo eta txikitu egingo zaitut eta espetxera **eramanarazi**. Oskar Arana

Bere lagunari deitu eta buruko hura deabruarekin batera gelatik urruti **eramanarazi** zion. Askoren artean

Nonnahi begi pare ikaragarriak isiltasunean kargu hartzen, begi torturatuak, eskuak burura **eramanarazi** zizkidatenak. Fernando Rey

Nire izterren artean bustitzen hasi zen, eta horrela ikasi genuen gozamena sinkronizatzen, mokorrak pixka bat atzera **eramanarazten** nizkion nire izterren artean goza zezan. Karlos Zabala

Hilak kamioian metaturik **eramanarazten** zizkioten, trapu zahar batzuk balira bezala. Eneko Bidegain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batera eramanarazi (3); **eramanarazi zituen** (3); **eramanarazi zuen** (5)

---

eramanerraz *izond* erraz eramaten dena.

Eguzkia irten nahian ari zen laino horixken artetik, eta eguraldia **eramanerraza** zen eguteran, haizeak ez zuen-eta jotzen. Anjel Lertxundi

Lau gizon **eramanerrazagoak** dira, orkestrako guztiak baino. Felipe Juaristi

Nire uztarria **eramanerraza** da eta nire zama arina. Joan Mari Lekuona

Honelakoentzat uztarria, Jaunaren hitzetan **eramanerraza** dena, garratza gertatzen da. Joan Mari Lekuona

-Ez dirudi **eramanerraza** zenik. Monika Etxebarria

---

eramanezin *(orobat **eraman ezin** g.er.) izond* ezin eramanezkoa.

Nork aipatu zuen izatearen arintasun **eramanezina**? Jon Muñoz

Nola adierazi hitz sotilez oinaze psikikoaren zama **eramanezina**? Karlos Linazasoro

Donibane Garazi inguruetako lasaitasun **eramanezinaz** aspertuta, amorratzen egongo da misio kitzikagarriagoak egiteko eta ekintza gizon bihurtzeko, eta azkenean, espioi lan bat emango diote. Berria - Kultura

Kirats **eramanezina** da, sandalo eta intsentsuaren usainak gorpu usteldu eta haragi errearenekin nahasten baitira. Gotzon Garate

Nik adiskidetasun huts mantendu nahi nuena zuk harago behartu nahi izan zenuen, harago ezin eramanak min **eramanezina** sortzen zizulako apika. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduan, zenduaren aurpegia esku artean duzula, aldatu egiten dira gauzak, eta hiltzeko desio boteretsu bat igotzen zaizu hesteetatik garunera, suzko bihotzerre **eramanezin** bat sortzen duena. Karlos Linazasoro

Eguerdiko hamabietako eguzki zuri **eramanezin** hura. Juan Garzia

"Xanpain-kopak", Robert Wadek deskribaturiko desberdintasun patroi gisa, oso modu grafikoan erakusten du munduko ekonomiako aberatsen eta pobreen arteko amildegiaren sakona, eredu politiko **eramanezin** baten isla inolaz ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arratsaldeak benetan eternitatea zirudien, urdin bezain **eramanezin**, baina eder, baina amaigabe. Joxe Austin Arrieta

Tentsio hura **eramanezina** zen. Alberto Ladron Arana

Oker larri bi bizitzak: **eramanezina** eta laburregia da. Berria - Kultura

Eramanezina gertatzen zaizu esparru ezin estuago horretan zain egon beharra. Rafa Egiguren

Isiltasunaren gogorra **eramanezina** gertatu zenean, Healy andereñoak honela esan zion baritonoari: [...]. Irene Aldasoro

Eramanezina egiten zitzaion bere burua hirixka postalkara, pastelkara hartan aurkitzea. Iñaki Iñurrieta

Biriketako estura baino **eramanezinagoa** egiten zait. Anjel Lertxundi

Oker larri bi bizitzak: **eramanezina** eta laburregia da. Berria - Kultura

Gero, bere ziegan, beldurra **eramanezin** bilakatu zenean, Vasili Kashirin otoitz egiten saiatu zen. Jose Morales

Eramanezina zuen oinazea, hanka baten gainean baizik ez zitekeen ibili. Anjel Lertxundi

Atxiloturiko lagunen artean bazen zaldun harro bat, guztiz **eramanezina**. Askoren artean

Eraman ezinezko tristura ematen zioten hango herri zuriek eta mendi ilunek. Alberto Ladron Arana

2 (izen gisa)

Azalekoak izaten dira gehienean **eramanezinak**. Andoni Egaña

Ohiko gertakizun, gatazka eta **eramanezinak**. Anjel Lertxundi

Eraman onekoa eta diskretua zen ama, eta kontatzen ari naizen oroi-tzapenen ardatzean beti aitarekin nuen **eramanezina** ageri bada ere. Anjel Lertxundi

Eta (Carmichael jauna eta honen **eramanezinera** itzuliaz) ez zegoen imajinatzerik Ramsay andrea zutik egotea pintatzen, etzanda egotea irakurtzen, goiz osoa belardian. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baino eramanezinagoa (3); **eramanezina da** (3); **eramanezina egiten** (5); **eramanezina zen** (5)

---

eramangailu *iz* eramatteko gailua.

Gogalmenak **eramangailu** direlako, arimaren egintza bururatu dadin. Joan Mari Lekuona

---

eramangaitz *izond* eramaten zaila, ia eramanezina. ik **jasangaitz**.

Badira giza gogoak nekez uler ditzakeen gauzak, oinaze **eramangaitzez** baizik ezin geuregana ditzakegunak. Alberto Ladron Arana

Diagnostikoa, begi-bistakoa: triangelu **eramangaitz** baten amaiera dohakabea. Aingeru Epaltza

Jendetza izugarri bat ilusiorik gabeko putzuan itoarazteko ardura **eramangaitza**. Pako Aristi

Ez ditut adierazi nahi bakarrik eta nagusiki hitz-desegokitasunak, errepikapen nahiz truka-bihurriketa onartezinak, ez eta hitzandikeria astunezko zati **eramangaitzak**, baizik eta bazkalondoko prosa horren eite oro har indargea. Juan Garzia

Nola egin aurre bizitza **eramangaitz** bati, halako bizitza norberak taiutu badu ere. Berria - Kultura

Egoera hitsa zen, **eramangaitza**: mozkorkeriak, oihuak, muturraldiak, isilune eta inkomunikazioa... eta erdian haurra! Jasangaitza. Jose Angel Irigaray

Jainkoak eta Naturak ez dutela onartzen erabat gaiztoa eta **eramangaitza** izango den gauzarik. Joan Mari Lekuona

Bereziki **eramangaitz** zitzaion hori artistak lehendik ezagutzen zituenean, trabatu egiten baitzitzaizkion haien lanen irudi desitxuratuak lehendik ezagunak zituen irudi jatorrekin. Xabier Olarra

Mozkotea, lodia eta zorrotza zen, eta **eramangaitza** gertatzen zitzaion mozkortuta zegoenean. Mirentxu Larrañaga

Egunaren hasiera besterik ez izanik ere, eguerdikoa bezain pisu eta **eramangaitza** zen beroa. Xabier Montoia

Eramangaitzak zitzaizkion naziak eta etxe aurreko lorategi txikian uda partean agertzen ziren sator-tontor txikiak. Anjel Lertxundi

Bakardadea baino **eramangaitzagoa** zitzaion amaren erasia amaigabea. Xabier Montoia

Gero eta **eramangaitzagoa** zitzaidan egoera hura, amaierarik ikusten ez niolako. Anjel Lertxundi

Ez dit minik egin nahi, baina ez da konturatzen hizketarako modu mengel horixe egiten zaidala **eramangaitzena**. Anjel Lertxundi

---

eramangarri *(orobat **eremangarri** g.er.)* **1** *iz* toki batetik beste batera erraz eraman daitekeena, eskukoa. ik **portatil**.

Chiffonierraren aldamenean berogailu **eramangarri** bat zegoen. Koro Navarro

Beso luzatuetan CD-gailu **eramangarri** bat zeraman. Oskar Arana

Ordenagailu **eramangarria** itzali aurretik, ohi bezala, hurrengo eguneko agenda aztertu zuen. Fernando Morillo

Sakelako telefonoaren bitartez ordenagailu **eramangarria** Internetera konektatu zuen. Fernando Morillo

Ipuina galdu zen, urte hartan bertan bikoteak eta lagunek kamera **eramangarriarekin** errodatu zuten filma bezala. Berria - Kultura

Hormaren eta liburu apala baten tartean kokatuta zegoen irrati **eramangarri** txiki baten atzean. Joxemari Iturralde

Hogei urte pasatxo eta, hara orain: edozein pantaila **eramangarritan** azken ordu erdiko meteosat erretratu garbi gardena ikus zenezake. Pello Zabala

Eseri egin zen, eta argi-mahai **eramangarri** baten gainean aztertu zituen berrogeita zazpi irudiak. Oskar Arana

Saddam Hussein agintari ohiaren garaiko milaka misil **eramangarri** desagertu dira Iraken. Berria - Mundua

Publikoa elkarren kontra estutuko zen banku korritu **eramangarri** eta deseroso haietan. Harkaitz Cano

Ivan Revinskyk hartu zuen bigarren erabakia, zirkuaren inguru osoa banku korritu ilaraz betetzea izan zen, anfiteatro **eramangarriak** sortuz, antzinako Erroman ohi zutenez. Harkaitz Cano

Umeak beren gisara uzten zituzten, Jerryk, saltokian erosten zituen beste gauza asko bezala, ia hutsaren truke erosi zuen igerileku **eramangarrian**. Koro Navarro

Berrehun kosako eta hogeita bost bashkir zaldi gainean, berrehun soldadu oinez, hirurehun gamelu, hogeita bost gurdi, bi ontzi **eramangarri** eta bi kanoi, hori baino gutxiago ez zuen eramango. Karlos Zabala

Judutarrek tabernakulu **eramangarri** bat besterik ez zeukaten, eta etengabe aldatzen zuten lekuz; horrek kanpo uzten zuen babesaren ideia. Iñaki Iñurrieta

2 jasangarria.

Negu betean bageunden ere, **eramangarria** zen itzalguneetako hotza, gozoa eguzkiak epeldutako kale bazterren epela. Anjel Lertxundi

Ai ene, hau hondamena gurea! Sendagaitza gure zauria! Eta gu, gaitz **eramangarria** izango zelakoan! Elizen arteko biblia

Ura aurrezteko, modu **eramangarrian** kudeatzeko, eta eskaera kontrolatzeko helburuak jasotzen dira, besteak beste. Berria - Harian

Dolarraren beheraldiak, azkenik, esportazioen bolumenari eragin zion, eta horrek maila **eramangarri** batera eraman zuen defizit korrontea. Koro Navarro

Jatetxe lasai eta intimo bat, eta akustika **eramangarriaren** dohain erantsiarekin bedeinkatua. Oskar Arana

Aldizkariak itxaronaldia **eramangarriago** egiten lagundu dit. Patxi Zubizarreta

Mina artean oihartzun urruna, **eramangarria** bazen ere, banekien luze gabe beste sentipen guztei nagusituko zitzaiela. Alberto Ladron Arana

Kontu korrontean eta ohean bere nagusitasuna bermatuta ikusirik [...] ustezko arazo larriak beste itxura bat hartzen zuen, itxura **eramangarria**, beste askok bezala. Migel Angel Mintegi

Baratxurik gabe nolako mina hartuko genukeen pentsatze hutsak arinago bihurtzen zuen mina, eta **eramangarriago** tortura. defizitak ekonomiari egindako kaltea «**eramangarria**» izan dela. Joxerra Garzia

Zuri-beltzeko telebista, berriz, askoz ere **eramangarriago** zitzaion, ustez. Xabier Olarra

Beste bi armagnac botila txiki erosi nituen taberna ondoko denda txiki batean, bidaia **eramangarriago** egiteko. Anjel Lertxundi

Zikoinak ongitxo daki ipuinek **eramangarriago** egiten dutela baita bidaiarik luzeena ere. Patxi Zubizarreta

Olagarro jarriko zion goitizena emazteak eritasunari, haren ankerkeria **eramangarriago** egite aldera. Imanol Zurutuza

Eramangarriago dela zuzengabekeria norengandik datorren jakinez gero. Imanol Zurutuza

Olagarro jarriko zion goitizena emazteak eritasunari, haren ankerkeria **eramangarriago** egite aldera. Imanol Zurutuza

Eramangarriago dela zuzengabekeria norengandik datorren jakinez gero. Imanol Zurutuza

Zezenkoren kontra lortu nuen garaipenarengatik, dena **eramangarriagoa** zitzaidan gorputza zailtzeko ahalegin hartan. Anjel Lertxundi

Esadazu zerbait, gaua **eramangarriagoa** gerta dakidan. Mirentxu Larrañaga

Erakunde sozial hauek botere popularra, garapen **eramangarria** eta demokrazia partizipatiboa denfendatzen duten talde progresista gisa aurkezten dute beren burua. Iñaki Heras

Garapen iraunkorra: «Forumaren gunean eraikin erraldoiak egiten ari dira, inolaz ere **eramangarriak** ez direnak»- Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino eramangarriagoa (4); **bidaia eramangarriago** (3); **eramangarri bat** (6); **eramangarri egiten** (3); **eramangarri eta** (3); **eramangarria da** (3); **eramangarria izan** (3); **eramangarria zen** (4); **eramangarriago egin** (3); **eramangarriago egiteko** (4); **eramangarriago egiten** (7); **eramangarriagoa da** (7); **eramangarriagoa egiten** (5); **eramangarriagoa zitzaidan** (3); **eta eramangarria** (4); **garapen eramangarria** (3); **misil eramangarriak** (3); **modu eramangarrian** (3); **ordenagailu eramangarria** (7); **ordenagailu eramangarriak** (3)

---

eramangarritasun *iz* eramangarria denaren nolakotasuna. ik **jasangarri**.

Adibidez, Marxek azpimarratu zuen kapitalismoa eta ekologia-orekaren **eramangarritasuna** bateraezinak zirela. Iñaki Heras

Gordeka bezala lauzpabost kide Elgerekin juntatu ziren ondoko egunetan proiektuaren **eramangarritasunaren** aztertzeko. Itxaro Borda

Guztiona den mundu honen **eramangarritasunari** begira. Iñaki Heras

Eramangarritasunezko irizpideak beteko dituen produktua lortzea, bai erabilitako lehengaien ikuspegitik, bai sortuko diren hondakinen aldetik. Berria - Gaiak

---

eramanki ik **eramaki**.

---

eramankizun *iz* eraman edo pairatu behar den gauza.

Apaltasun-ibarrean jaiotzen dira gozotasuna, norbera inoren esku jartzea, baretasuna, **eramankizuna**, ontasuna. Joan Mari Lekuona

Sufrimenduaren sailkapena egiten dakitenek esan ohi dute ez dagoela umea hil zaion amaren **eramankizuna**, pairamena eta kabitu-ezina bezalakorik. Iñaki Segurola

Gizakiak iraun dezala, bada, **eramankizun** gozoan, jainkozko borondatearen portuan. Joan Mari Lekuona

Ipurmasailetan malgutasun puntu erorberago bat sumatu niola uste izan nuen gero, eta ibiltzeko moduan halako **eramankizun** nekatuago bat ere bai azkenik. Joxean Agirre

---

eramankor *izond* eraman handikoa. ik **jasankor; pairakor**.

Ez nuen eztabaidarik nahi, eta, pazientzia bildurik, ahal nuen tonu **eramankorrenean** erantzun nion: [...]. Anjel Lertxundi

Zentzudun eta **eramankor** izateko agintzen die. Patxi Altuna

Zu gizon buruargia zara, erne ibili, jakin ezazu jendea non den **eramankorra** eta non suminkorra, eta konta iezadazu gero horren guziaren berri. Jose Morales

Gurean satirak ez du sekula izan bizi herbal eta hutsala besterik, zeren haren bihotza zorroztasuna baita, eta horretatik eskas samar gabiltza zoritxarrez; umorea, harekin nahastu ohi duguna, betiere, **eramankor** eta bihozpera izaten da. Xabier Olarra

Gizabanakoa **eramankorra** bada, ordea, nekez matxinatuko du inork. Jose Morales

Izan zaitez zorrotza zeure buruarekin, **eramankorragoa** hurkoarekin. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Mustok, **eramankor**, aitaren makilatxoa hartu zuen. Juan Kruz Igerabide

---

eramankortasun *iz* eramankorra denaren nolakotasuna.

Solidaritatea, samurtasuna, **eramankortasuna**, iraun duten bikoteen ondarea dela uste dut... Herria

---

eramanpen *iz* pazientzia, egonarria.

harro sentitzen gara Jainkoaren eliz elkarteen aurrean, jasaten ari zareten pertsekuzio eta atsekabeen artean agertzen dituzuen **eramanpen** eta sinesmenagatik. Elizen arteko biblia

Zentzarazi zabar dabiltzanak, eman adore bihozgabetuei, eutsi ahulei, izan **eramanpen** guztiekin. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin)

Jainkoak bere haserrea erakutsi eta indarra azal zezakeen, nahi izanez gero, baina **eramanpen** handiz jasan zituen zigorra merezi zutenak eta hondatuak izateko zeudenak. Elizen arteko biblia

Pauloren **eramanpen** handia. Elizen arteko biblia

Izan **eramanpen** handiko ezbeharrean eta iraupentsu otoitzean. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eramanpen handiz (3); **eramanpena eta** (3); **eta eramanpena** (4)

---

eramate 1 *iz* adierazten dena norabait helaraztea.

Bahitze eta atzerrira **eramate** hauek talde ongi antolatuek burutu dituzte. Poliziak atxilo **eramate** hura bera ere itxura hutsa izan ote zen. Berria - Mundua

Zirizako motorra Kubora **eramate** hutsa eraldaketa bat da. Berria - Kultura

Eramate hutsa, gutxi al da? Patziku Perurena

Elorri eta zuhaitzen fruituak berekin **eramate** hutsarekin gosea zertxobait baretu balitzaie bezala sentitzen ziren. Askoren artean

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrenbestez, egun bultzatzen ari diren ur **eramate** erraldoiak, ura gordetzeko egin diren azpiegiturak, Itoizko urtegia, Esa urtegia handitzea eta atzealdean zuen Gorraizko golf zelaia bera kritikatu zituen. Berria - Euskal Herria

Hasiera batean beste buruhauste handiago bat zena -haserrealdia aitarekin, detektibe pribatuarena eta etxerainoko bahiketa- **eramate** hura- gerora soluziobiderik onena suertatu zen. Joxemari Iturralde

3 (hiru osagaiko elkartetean)

Harri-jasotzen, txinga-eroaten, orga jokoan, zaku-**eramate** lasterketan eta aizkoran hirugarren izan ziren. Berria - Kirola

Proba horiek oraindik jokoan direla, orga jokoa eta zaku-**eramate** lasterketari ekingo diote. Berria - Kirola

---

eramatearren *adlag* eramateko.

Aldi bakarrean **eramatearren** estu-estu sartu ditu kaxan kolonia botila haundi bat eta dozenerdi bat pakete. Pello Lizarralde

Kaskasoilak belarritik heldu zidan zuzendariarenera **eramatearren**. Pello Lizarralde

Davidek ez zion inori bizia barkatzen, ez gizonei, ez emakumeei, Gatera inor ez **eramatearren**. Elizen arteko biblia

Baldin eta azken erabakia bere esku bazegoen, zer zentzu zeukan autoz ia hirurehun milia egiteak bera hara **eramatearren**, gero emaitza bakarra atzera itzultzeko beste hirurehun milia egitea izango bazen. Oskar Arana

Lan egin eta lan horretan bere opor eta aurrezki guztiak xahutzeko gauza baitzen, inork deszifra ezin dezakeen hieroglifiko-mordoa etxera **eramatearren**... Joxe Austin Arrieta

---

erandioztar *izond/iz* Eradiokoa, Erandiori dagokiona; Erandioko biztanlea.

Jose Urkidi gudari **erandioztarrak** ez zuen Caponen aditurik. Lutxo Egia

Erandioztarrak argi zuen Larrinagako kartzela eta Cabo Quilates presondegi-itsasontziko triskantza famatuen erantzuleak, hurrenez hurren, UGTkoak eta Cartagenako miliziarrak izan zirela. Lutxo Egia

---

eransgarri *izond* erants daitekeena.

Bitarteko urriak erabilita (afixa **eransgarriak**, esku eskailera bat eta Bretainiako banderaren kolore zuri-beltzak zituen zinta bat), elebidun bilakatu zuen geltokia. Berria - Mundua

---

eranskailu *iz* idazkun edo eslogan bat daraman itsasgarria.

Marrazki bat, lerro bat, marra bat, argazki bat, **eranskailu** bat, bakoitzak asmatzen zuena jarri zuen. Berria - Harian

Salneurriaren **eranskailua** kendu eta bitan tolestu zuen paperezko poltsa. Harkaitz Cano

Kutxatxo bakoitzak bazuen, halaber, aurreko eta beheko aldean, **eranskailu** bat, ileen jabetza aitortzen zuena, inprentazko letra txiki txukunetan jarritako izenaren bidez. Joan Mari Irigoien

Tiraderatik paper batzuk hartu nituen, sindikatuko **eranskailuak** eta partiduko barne ohar batzuk hautsi egin nituen, sukaldeko ekonomikan erretzeko, badaezpada ere. Jon Maia

Medemi ez **eranskailuak** ideiak jazartzea baino ez du bultzatzen, eta mezu horrek ez luke eduki behar lekurik Goya sarietan. Berria - Kultura

Eranskailuaren azpian esaldi bat, nire letraz hori ere: MAS TEMPRANO QUE TARDE CAERA EL COBARDE, horrelaxe, letra larriz, nire abizena bezala. Pako Aristi

Eranskailu biribil bat, bertan jarria egunero pilula antisorgailua hartu behar zuela gogorarazteko. Joxemari Iturralde

Belascoain, Zizur Mayor, Zizur Menor eta Pamplona izenen parean, **eranskailu** handi batzuekin, Belaskoain, Zizur Txikia, Zizur Nagusia eta Iruñea jarri zituzten. Berria - Euskal Herria

---

eranskari *iz* aglutinantea.

Jada tesi doktoralaz gero, kultura modernorako euskararen berezko ezgaitasunaren arrazoi funtsezkoa horren natura **eranskaria** -aglutinantea- da, giza mintzamenaren garapideko estadio primitibo bati, ahalbide linguistikoen garapenean maila apal bati, dagokion izaeratzat jotzen dena. Joxe Azurmendi

Egia esan, ez da zaila hamabost letratik gorako hitzak aurkitzea, hizkuntza **eranskaria** izateak atzizkiak pilatzeko dakarren ahalbidea kontuan harturik. Iñaki Arranz

Honek zerikusirik ez du hizkuntza bat **eranskaria** edo malgukaria izatearekin, baina Unamuno-k beti esplizitatzen duen arrazoia hau da. Joxe Azurmendi

---

eransketa 1 *iz* eranstea.

Halako predikatuaren **eransketak**, beraz, judizio sintetiko bat sortzen du. Ibon Uribarri

Azterketa honek suposatzen du, era berean, enuntziatuak berezkoa zaien **eransketa** (additivité) forman jorratzen direla. Xabier Arregi

Lituaniak ikusi du poloniera ezarri zela lituanieraren ondoan, bai eta errusiera ere, Errusiako Inperioaren **eransketagatik**. Isabel Arrigain

Dena den, **eransketa** hori aspaldian jarri da praktikan, fabrikatzaile batzuek agian nahiago baitute ez jakitea hiperbitaminosia (edo neurriz gaineko bitamina-kontzentrazioa) ere kaltegarri zaiola gizakiari. Edorta Agirre

Hala ere, mundu islamikoko ekonomi baliabideei egindako **eransketa** nagusia, inoiz nekazaritza-balio nabarmenik izan gabeko eskualdeetan, olio mineralaren lur azpiko gordailuak aurkitu eta erabiltzea izan da. horren bitartez nire ezagutzan hobekuntza logikoa sortzen da, baina ez da ezein gehikuntza edo **eransketarik** bereganatzen. Iñaki Mendiguren

Azkenengo bi esaldiek B-ko **eransketa** bat biltzen dute. Juan Martin Elexpuru

Paragrafoaren bukaera artekoa B-ko **eransketa** da. Ibon Uribarri

2 (hitz eraketan)

Mailaz maila, hitzetik hitzera egiten dugu salto, norabide jakineko progresio baten barruan: dela **eransketaren** bidez (gero eta luzeago), dela kenketaren bidez (gero eta motzago), dela metagramaren bidez (aldian aldiko letra bat aldatuta). Iñaki Arranz

Har ditzagun honako ordezkatze hauek: goiko bokalaren eta bokal irekiago baten arteko kontsonante **eransketa** (/mendia/ Šmendia), batetik; bestetik, bokal erdi-irekien bokal irekiekiko disimilazioa (/etea/ Š etia). Lourdes Oñederra

Ez da, bestela esan, **eransketa** soila, igurzkari -> afrikatu ordezkatzea baizik. Lourdes Oñederra

Hizkuntzak onartzen ez dituen atzizki **eransketetan**, esate baterako: Eroski, Etxekor, Etxetar, Hirukide, Mendiki, Mendikoi, Jolastui, Hizkin... Iñaki Arranz

---

eranskin *(orobat **eraskin** g.er.)* **1** *iz* zerbaiti eransten zaion gauza. ik **gehigarri**.

Tenpluaren **eranskinak**. Elizen arteko biblia

Eliza hau S. Klararen basilikaren **eranskin** bihurtu zen. Askoren artean

Atalondoaren albo-hormetan, saredun leihoak eta palmondo-irudiak zeuden, bai eta tenpluko **eranskinetan** eta aterpetxoetan ere. Elizen arteko biblia

Sakristia ez zen erromanikoa, askoz geroago eraikitako **eranskina** baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

Eranskinen kanpoko hormak bi metro eta erdiko lodiera zuen. Elizen arteko biblia

Delhi ezagutzen duen edonork esango dizu Delhi berri hori ez dela Indiako administraziorako eraikitako atal edo **eranskin** bat besterik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hirugarren (Napoleonen) borrokaldian Errusia da gerra-egile nagusia, eta agian Amerikako Estatu Batuak ere sar daitezke bertan, "1812ko gerra" gerra napoleonikoaren **eranskintzat** hartzen bada. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren atributuetatik "akzidente" izendapena baztertzean, ez da horren ideia ezerezten, esentziari gaineratzen zaion guztia, **eranskin** hutsa izanik, ez baitu bere errealitatea osatzen: horixe da, hain zuzen, "akzidente" hitzaren esangura. Xabier Kintana

Aingeruak eta arima arrazoidunak aldiz, berrien bitartez, hau da izatez beren substantzietarik bereizten diren **eranskinez**. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizon bat, gorreriak joa, gaixoa eta behartsua, bere ondoan, **eranskin** gogaikarri baten modura, bera baino hogeita zazpi urte gazteagoa den emakume bat duena. Josu Zabaleta

Erran dugu iragankorra, baztertzeko ohiturak, hauek **eranskin** iraunkorrak direlakotz. Piarres Xarriton

Grazia hau, alabaina, ez da ez Izpiritu Saindua ez gure arima bera, haiek substantziak baitira, hau aldiz **eranskin** berezi bat da, arimari datxekiona. Piarres Xarriton

Badira, halaber, beren baitan xede berezirik ez duten gauzak ere, baina beste atal batzuen osotasunerako beharrezko **eranskin** gisa haiei lotuak. Xabier Kintana

Washingtongo Etxe Zuriari egindako **eranskin** berriak Theo-Dorikoak dira, Dorikoaren Ordena eliztarrekoak, alegia. Xabier Olarra

Azkenean erraten dut, aipatu diren elizaren bost botereak sartzen direla aitzineko **eranskinean** eman definizioan. Piarres Xarriton

Hamargarren **eranskina** penitentzia da, eta bitarikoa izan daiteke: barnekoa eta kanpokoa. Patxi Altuna

3 idazlan baten bukaeran osagarri gisa eransten den zatia.

Nik ez nuen idatzi testamentua, eta ez naiz gogoratzen **eranskinik** ba ote duen. Jose Morales

Ingeles-gramatikako erregela zerrenda, 12. kapituluko II **Eranskinean** bilduta eta ordenatuta daude. Itziar Laka

Honela erantzuten dio galdetegiaren hamabigarren itemari, artikuluaren **eranskinean** ageri denez. Iban Zaldua

Aurreko kapitulua argitzeko **eranskina**. Xabier Kintana

Eranskina: Informazio gehigarria. Askoren artean

Eranskina: Hainbat erabaki terminologiaz. Askoren artean

Hemen idatziak izan daitezke *Gogojardunak* liburuaren zenbait atal: "Hiru bikoteak" 149-157, "Hiru apaltasun-moduak 164-168, [...], **"Eranskinak"** 73-90 eta "Elizarekin sentitzeko arauak" atalaren puntu batzuk 352-365. Patxi Altuna

Txostenari adibidez betetako **eranskina** gehitu diote abokatu bizkaitarrek. Berria - Euskal Herria

Lau **eranskin** datoz orain arinago kentzeko bekatu edo hutsune berezi hura. Patxi Altuna

Konpara itzazu **eranskin** moduan gehitu ditugun bi idazlanak, bata ikasle batek eta bestea beste batek idatzia. Askoren artean

Zeren eta ohitura guztiak kalitateak eta arimaren esentziatik eta substantziatik bereizten diren **eranskinak** baitira. Piarres Xarriton

Txostenaren **eranskinean**, h zuten hitzen zerrenda aurkeztu zen. Koldo Zuazo

1963ko argitalpenaren I. **eranskinean** beste 118 ariketa proposatu zituen. Xabier Olarra

Lehen Zatiko **Eranskinean** erakutsi dugu, alabaina, Naturak ez diharduela helburu batengatik. Piarres Xarriton

1. Taulak erakusten duen bezala (ikus **eranskinean**), botoa gizonek bakarrik zuten hasiera batean. Pello Salaburu

Eskrituraren kanonari baimenik gabe jarritako **eranskinean** oinarrituz. Iñaki Mendiguren

Emakumeen munduari **eranskina** eskaintzen zaion unetik beretik huts egiten du asmorik onenak. Iñigo Aranbarri

Bigarren zatian, **eranskin** historikoak ditugu begipean, kondairaren nundik norateko guziekin. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gramatika **eranskinean** alfabetoa, zenbakien idazkera, deklinabidea eta aditz laguntzaile eta izenordainen taulak agertzen dira. Berria - Euskal Herria

"25.000 sarrera ditu", zioen hitzaurrearen egileak, "eta koloretako 72 orri informazio **eranskin** gisa. Bernardo Atxaga

Ordu arte Mendebaldeko erresumen legeria barbaroen tribu-kode zaharren kristau-**eranskin** gisako bat izan zen. Iñaki Mendiguren

Kreatzailearen zoriona, Jainkoa bera da, Izpiritu huts dena eta mugarik gabeko gozoarekin ezagutzen eta maitatzen dituena bai bere burua bai bere kreatura guztiak, beren esentzia hutsarengatik, hartaz beste ezagutza edo maitasun **eranskin** zinez bereizirik gabe. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eranskin bat (7); **eranskin gisa** (5); **eranskin honetan** (3); **eranskina da** (4); **eta eranskin** (5); **eta eranskinez** (3); **lehen zatiko eranskinean** (4)

---

eranskintxo *(corpusean **eraskintxo** soilik)* *iz* eranskin txikia.

Iruñean argitara eman zen otoitz-liburu latinezko batean, hantxe ipinitako **eraskintxo** batean ageri da *azaro* izen hori. Pello Zabala

---

eranskor *izond* erraz eransten edo itsasten dena.

Euskarak, ordea, deklinabide **eranskorra** du, hitzari atzetik eransten zaiona, eta horrek era honetako laburdurak egitea izugarri oztopatzen du. Iñaki Arranz

---

eransle *iz* hizkuntzez mintzatuz, osagarriak batzen direna banako morfologiko berria osatuz.

Hizkuntza **eransleetan**, beraz, hitzak oso luze izatera irits daitezke. Lourdes Oñederra

Bokal-harmonia ordezkatze morfonologikoa dela (erregela bat) eta hizkuntza **eransleetan** dela emankorren hizkuntza horietan erlatiboki asko direlako erroari gehi

dakizkiokeen atzizkiak. Lourdes Oñederra

---

eranspen *iz* joera, grina.

Larmintzan ileak hazten diren moduan, gure ahalmenetan ere, goikoetan eta behekoetan, hazi ohi direla ohitura zaharretiko **eranspenak**. Joan Mari Lekuona

Ondorioa sendotu duzula ohartzen naiz, baina **eranspen** honek ez digu aurrera pausorik eskaintzen, aspalditik eta biziki kezkatzen nauen arazoak bere horretan irauten baitu. Imanol Unzurrunzaga

---

eranstearren *adlag* eransteko.

Esku-sexuzko ekitaldiak errepikatu egin ziren hurrengo egunetan eta, kanpaijotze saioei emozio pixka bat **eranstearren**, lehiaketan aritzea bururatu zitzaigun. Jon Arretxe

---

eransteke *adlag* erantsi gabe.

Kezka-beldur horietan bada ere, hark egin bezala idatzi omen zituen denak, kondairari egia-izpirik txikiena ere kentzeke eta **eransteke**, inork inoiz gezurtitzat ekiteko batere axolarik gabe. Patxi Ezkiaga

Eta, zelan lortu pertsonaia sinesgarriak benetako biziaren arnasa **eransteke**. Berria - Kultura

---

eranstsarazi, erantsaraz, erantsarazten du *ad* eranstera behartu.

Gakoak jarriko dizkizut muturretan, Niloko arrainak zure ezkatetan **erantsaraziko** ditut; ibaiaren erditik kanpora aterako zaitut, Niloko arrain guztiak ezkatetan erantsiak dituzula. Elizen arteko biblia

---

erantsi, erants, eransten *(2.911 agerraldi, 227 liburu eta 671 artikulutan; ETCn 22.127 agerraldi)* **1** du *ad* adierazten denari beste zerbait elkartu, hau harekin bat egiten dela. ik **gehitu**.

Oinak katean lotu zizkioten, burdinazko lepokoa **erantsi**. Elizen arteko biblia

Harresi beltzek inguratzen zuten Donostia zaharra, benetan desagertua zela; eta neure leihotik begira, harresiari **erantsitako** txabola ilararik ez zela ageri. Txillardegi

Gerora bai batzuek, bai besteek zerbait **erantsi** edota kendu nahi izango balute, elkarrekin bat etorriz egin beharko dute, eta orduan **erantsia** nahiz kendua baliozkoa izango da. Elizen arteko biblia

Arestian airean gora altxata bezala, aulkian hondoratzeko zorian sentitu nintzen kolpetik, ehun kilo **erantsi** balizkidate bezala. Bernardo Atxaga

Klariona, igeltsua edo auskalo zer zerrikeria **erantsi** dioten. Aingeru Epaltza

Urtea osatzeko egun bat **erantsi** behar omen da. Pello Zabala

- **Erantsi** horiei beste hogeita hamar. Koro Navarro

Hauek Jaunaren etxeko sarreran zeuden, tenpluari **erantsitako** aterpe batzuetan. Elizen arteko biblia

Egin brontzezko sare bat eta **erantsi** brontzezko lau eraztun sarearen lau izkinei. Elizen arteko biblia

Hiru litro oliotan oraturiko hamabi kilo irin **erantsiko** dira. Elizen arteko biblia

Arrozari **erantsitakoa** nolako, risottoa halako. Anjel Lertxundi

Horri **erantsi** behar zaio Apirileko Feriaren ospakizunetan murgilduta daudela Sevillan, eta jokalari gehienek ordu txikiak arte egin omen zutela festa. Berria - Kirola

Autotik atera aitzin, frogatu nuen karteran bi kondoiak neuzkala beti, baikortasun ukaldi batek jota laguna **erantsi** bainion joan den aspaldiko denboran toki guztietara aldean eramaten nuen ale bakarrari. Aingeru Epaltza

1645an, elurte ikaragarri batek Kalagurritarrak 40 egunez lanera irten ezinik eduki zituen, eta elurteari izoztea **erantsi** zitzaion. Pello Zabala

Hilezkorra denak, ordea, ez du uzten zatirik alda ez **erants** diezaioten, ez ezer eskapa dakion. Xabier Amuriza

Bertzenaz ere, badu behaztoparik aski, eta ez dago zergatik behaztopari behaztopa **erantsi**. Joan Mari Irigoien

Idazleak ez dezake jakin non batuko zaion irakurlea, ez zenbat bide egingo duen bere konpainian, are gutxiago zer paisaia **erantsiko** dion irakurleak bideari. Joxerra Garzia

Akzidenteak existitzen dira, eta horiek substantziaren ideiari **erantsiriko** nozioak dira, eta ez dago gorputz bat bera ere horrelakorik ez daukanik. Xabier Kintana

"Harrigarri" horri, dena den, "kilikagarri" **erantsi** beharko genioke ingurunea deskribatzerakoan. Jon Arretxe

Harengan ez dela aniztasunik ez eta deus haren esentziari **erants** dakiokeenik ere. Xabier Kintana

Orduan, batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean **erantsiz**, edatera eman zion. Elizen arteko biblia

Bekatua bekatuari **erantsiz**. Askoren artean

Gehiegikeria hutsa zela, gezurrari gezurra **erantsita** osatutako gutuna. Joxerra Garzia

thrikh* jatorrizko erroak, *-si* desinentzia **erantsirik, *thrikhsí* eman zuen. Isabel Arrigain

Osaeraz ere xelebre xamarra da hitza, oso gutxi baitira partizipio bati *-tsu* atzizkia **erantsita** sortzen diren hitzak. Iñaki Segurola

Koska bat **erantsi** diezaioke bertso idatziak bat-batekoari. Andoni Egaña

Fat 1 izeneko genea **erantsita** dute txerri hauek. Berria - Gaiak

Erants iezaiozu horri guztiari desagertu zen egunean jantzirik zeramatzan zapatak, eta, zapata horiek ere sortetan saltzen badira ere, ziurtasunaren muga-mugaraino biderkatzen dituzu probabilitateak. Koro Navarro

Kontakizunari gatz-ozpin pizar bat **erantsi** nahirik, ehorzketaren inguruko xehetasun makabro-barregarrietan luzatu nintzen. Aingeru Epaltza

2 esaten edo idazten denari gehitu.

Ministro jenerala eta gainerako ministro eta kustodioak obedientziaz behartuak beude, hitz hauei ezer ez **erantsi** eta ez kentzera. Askoren artean

Erantsi du bestak bost ehun gazte bildu dituela, oro ongi iragan dela eta gaskoin/euskaldunen arteko elkartasunean. Herria

Zera **erants** daiteke: artistak, krisia eta arazoa zehazten ahalegintzeaz gainera, gizakiok krisidun eta arazodun garela oroitarazten digu. Anjel Lertxundi

Nerbioetako eritasun bat, besterik ez, **erantsi** zuen berehala, dudarik gabe laster sendatuko zena. Koro Navarro

Eta betikoa **erantsi** zuen gero, alegia, italiarrekin tratuan hasi baino lehen Errepublikak bizkarra eman ziela gudariei. Ramon Saizarbitoria

Eta, nolanahi ere - **erantsi** du- ale hori ez duk gaurkoa. Txillardegi

Booz - **erantsi** zuen- hurbileko ahaide dugu, legez gu zaintzeko ardura dutenetarikoa. Elizen arteko biblia

Nolako zakurkumea! - **erantsi** zuen gero, Txitxikovenganantz jiraturik-. Jose Morales

-És del tot fiable - **erantsi** zuen saltzaileak, eta hausnarretik atera ninduen. Anjel Lertxundi

Gero, biografoak uler ez diezaion, flandeseraz **erantsi** du: -Biografo horrek deabruaren laguntza izan du, bestela ez da posible! Anjel Lertxundi

Eta, bertze isilune labur baten ondoren, **erantsi** zenuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Erants ere bai ez nintzela gehiago bere senarra horrelako aginduak emateko, teknikoki egia osoa ez izan arren. Aingeru Epaltza

-Zoriontsu zara beraz? -ausartu zen gizona, ez zuela berak horrelako lorpenik erdietsi **erantsiz**. Itxaro Borda

Eta **erantsi** zion: -Egiozu lehenbizi kontsulta Jaunari. Elizen arteko biblia

Eta guk **erants** genezake: arima beltza duenari artea ez den beste zerbaitek argitu beharko dio ilunpea. Anjel Lertxundi

Erants iezaiozu honi hiriko kanpandorre guztien angelusa. Koldo Izagirre

Erantsi zuenez, Europako Batzordeak atzo hartu zuen erabakia apirilaren 18an Batasunean indarrean jarri zen legea betez hartutakoa da. Berria - Euskal Herria

Ruche jaunak ez zien erreparatu bigarren orriaren eskuinaldean **erantsita** zeuden bi oharrei. Jon Muñoz

Karkaila batean **erantsi** zuen: [...]. Itxaro Borda

"Kanposantuan ateak beti zabalik Nuarbek" idatzi zuen Izagirrek, Anjel Otaegi gogoan zuela; beste horrenbeste Itsasondok, **erants** genezake. Xabier Mendiguren Elizegi

Erants diezaiodan horri guztiari beste kontu bat, arestian ere aipatu dudana: [...]. Anjel Lertxundi

Han zegoen hilketaren lekuan zer egin jakin gabe begira geratu zen etxekoandre taldea, ertzaintzari abisu eman zion bulegaria, forentseak gorpua altxatu zuenean xehetasun morbidoak **erantsi** zituen emakumea. Joxean Agirre

RNk eta UDIk osatutako Txileren Aldeko Aliantza koalizioa «sendotu» dela eta borrokan segituko duela **erantsi** zuen. Berria - Harian

3 erabat loturik gelditzen dela batu. ik **eratxiki; itsatsi**.

Hara biltzen zen jendea, lagunartean ordu batzuk pasatzera eta etxe-zuloan **erantsitako** lizunak astintzera. Iñaki Segurola

Handikien ahotsa ito egiten zen, mihia ahosabaiari **erantsita** geratzen. Elizen arteko biblia

Gurpiletara **erantsi** zitzaigun lirdinga. Joxe Austin Arrieta

Pentsatzen hasi nintzen zer egiten nuen han, leihatilari **erantsita**, lapur bat bezala zelatan. Bernardo Atxaga

Telefonoa belarriari **erantsirik** egon zen lipar batean, haren txistua entzuten. Migel Angel Mintegi

Batzuetan izaten dira zeruan elkarri **erantsita** bezala bidaiatzen duten lainoak. Bernardo Atxaga

Soinekoei **erantsia** darama bere lohikeria. Elizen arteko biblia

Oharrari zeloz **erantsita** berrogeita hamar penikeko txanpon bat zegoen. Iñaki Mendiguren

Nevilleren besoak alboetara **erantsita** geratu ziren. Iñaki Mendiguren

Ikaslagunek bestela ere adarra jotzen baitzioten bere jantzi lasai eta zeloz **erantsitako** betaurrekoengatik. Iñaki Mendiguren

Ni neu Batzarremendi aldean gertatu nintzen, neure burua hobeki gerizatu nahiz lur gorriari **erantsia**. Txillardegi

Litekeena zen orduantxe bertan prefektuari eta kolegioko zuzendariari azalpenak ematen egotea, bere hitz egiteko modu harekin, ezpainak elkarri **erantsita** balitu bezala: [...]. Bernardo Atxaga

Lasterka abiatu nintzen, zer ote zen ikustera; txarrantxaren azpitik igarotzen hasi nintzen, eta alkandora **erantsita** geratu zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Ile bat **erantsita** daukan jaboia. Bernardo Atxaga

Fetxa jarri, lehenbailehen postalean helbidea idatzi, zigilua **erantsi** eta kafetegia utzi ondoren, buzoi batean bota zuen. Harkaitz Cano

Hartara, guk geurea egin izan bagenu, "kaltetu" horrek katastrofearen kutsua **erantsiko** zion poema osoari. Joxerra Garzia

Ilundu arte ez zen etxetik mugitu, sekulako alferraldi batek oheari **erantsita** eduki zuen. Migel Angel Mintegi

Egunkaritik iritsi zitzaidan orri horrexek grapaz **erantsita** zekarren Kelmen Sarasolaren bisita-txartela, Bilboko Gran Viako bere etxekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

4 (era burutua izenondo gisa)

Jatetxe lasai eta intimo bat, eta akustika eramangarriaren dohain **erantsiarekin** bedeinkatua, zeinari esker, xuxurlaz ari zinela ere, entzun egiten baitzizun solaskideak. Oskar Arana

Arrisku **erantsi** bat da, berez. Berria - Gaiak

Batzarraren hurrengo bileraren ondoren NBEko Segurtasun Kontseiluak, beharrezkoa izanez gero, Irani presio **erantsia** ezarri ahal izango dio. Berria - Mundua

Informazio **erantsi** gisa, Al Zarkaui-ren bigarrena zela esaten zen. Iñigo Aranbarri

Astirik galdu gabe, ordenagailua piztu eta artxibo **erantsia** erakutsi zion Josebak. Fernando Morillo

Hurbilago, belar sailetan sakabanatuta, garaiera askotako zuhaitzak ikus zitezkeen, denak ere pago-lizarrak; haize izpirik gabe, hostoak bustita eta astun zituztela, marrazkiak ziruditen, irudi **erantsiak**. Bernardo Atxaga

Berak, berriz, soineko **erantsi** bat darama, kolore urdin argikoa, eta gainetik lihozko txaketa; oinetan, zapata zuri takoidunak. Bernardo Atxaga

Begi haiek, aurpegi hura ezagunak zituen baina antz arraroa hartu zion, zerbait postizoa edo **erantsia** balu bezala. Iñaki Zabaleta

Lehen orrian txartel **erantsi** bat dator, Bilintx liburu-dendakoa. Pako Aristi

5 (era burutua izen gisa)

Eta Arauxok oihukatzen omen zuena **erantsi** morbosoz hobetzen zen ardandegian, ile-apaindegian, saretegian, mezako irteeran. Koldo Izagirre

6 ***balio erantsi*** *(orobat* ***balore erantsi*** *g.er.)*

Azkeneko hauen artean ezagunena **Balio Erantsiaren** gaineko Zerga da (BEZ). Iñaki Heras

Eguneroko elikadurak geroz eta sukaldeko lan gutxiago du, "**balio erantsi"** gisa: aurki, erositakoa ontzitik atera edo atera gabe, berotzea aski izango da. Garapen-bideko herrialdeetan, izugarri desorekatua da oraindik ere soldaten eta mozkinen arteko **balio erantsiaren** banaketa. Edorta Agirre

Lehengai asko kontsumitzen duten industria astunen pisua murriztea eta **balio erantsi** materiagabea duten informazioaren industriak ugaltzea. Koro Navarro

Euskalgintzak, bere produkzio eta fakturaziotik bizi den Euskalgintzak, euskara saltzeko dauka, hain zuzen ere: merkatuan **balio erantsi** gisa saltzeko, berek diotenez; atxikimendu deklaratu eta fakturatu bat da euskararen balio erantzia. Iñaki Segurola

7 ***eskua erantsi***

Bihar ordu berean, neure zerbitzariak bidaliko ditut, zure eta zure zerbitzarien etxeak araka ditzaten. Begiko duzun guztiari **eskua erantsi** eta hartu egingo dute. Elizen arteko biblia

Han, giltza atera, heldulekuari **eskua erantsi**, eta atea zabaldu zuen. Xabier Olarra

Kapitaina, jiratu, eta, perrail bati **eskua erantsirik**, buru gainean kanka jo zuen harekin kanoizaina. Juan Garzia

Komun konketan eserita, bideteko liburu pilatxoari **eskua eranstera** zihoala, hankapean zuen egunkari orri bikoitzari erreparatu zion Gabinek. Iñaki Iñurrieta

Dositeo zeritzan zaldun ausart batek, tubiar izeneko judu-taldekoak, **eskua erantsi** zion Gorgiasi eta, arropatik heldurik, arrastaka zeraman indarrean, madarikatu hura preso hartzeko asmoz. Elizen arteko biblia

Norbait irteten duk komunetik eta zuzenean barrara joan eta **eskua eransten** ziok tortilla pintxoari. Iñaki Iñurrieta

Tranpan harrapatzeko emango diot alaba, ea filistearrek **eskua eransten** dioten. Elizen arteko biblia

Nire agenteek ezin izan diote **eskua erantsi**. Josu Zabaleta

Juda, zeure senideek goretsiko zaituzte, etsaiei **eskua erantsiko** diezu lepoan, zeure aitaren semeak ahozpeztuko zaizkizu. Elizen arteko biblia

Lege-maisu eta apaizburuek Jesusi **eskua erantsi** nahi izan zioten orduan bertan, ondo jabetu baitziren beraiengatik esan zuela parabola hura. zela xaboia, zela argizaria, zela gantza edo zela kanario bat, **eskua eransten** zion guztiari, ezertxo ere gutxietsi gabe. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

artxibo erantsi (4); **asko erantsi** (8); **balio erantsi** (28); **balio erantsi bat** (4); **balio erantsi handiagoko** (4); **balio erantsi handiko** (4); **bat erantsi** (82); **bat erantsi behar** (11); **bat erantsi zion** (11); **bat erantsi zioten** (4); **bat erantsi zuen** (8); **batzuk erantsi** (4); **berehala erantsi** (4); **berri bat erantsi** (4); **berria erantsi** (4); **berriak erantsi** (5); **beste bat erantsi** (4); **besterik erantsi** (8); **dagoela erantsi** (5); **dagoela erantsi zuen** (4); **daudela erantsi** (5); **daudela erantsi zuen** (4); **dela erantsi** (48); **dela erantsi zuen** (37); **deus erantsi** (5); **direla erantsi** (13); **direla erantsi zuen** (9); **dituela erantsi** (8); **dituela erantsi zuen** (6); **dituztela erantsi** (5); **dituztela erantsi zuen** (4); **duela erantsi** (26); **duela erantsi du** (9); **duela erantsi zuen** (13); **dutela erantsi** (14); **dutela erantsi zuen** (9); **edo erantsi** (4); **erants daiteke** (5); **erants iezaiozu** (4)

erantsi baitzuen (5); **erantsi bat** (15); **erantsi batzuk** (4); **erantsi behar** (83); **erantsi behar izan** (5); **erantsi behar zaio** (15); **erantsi behar zaizkie** (5); **erantsi behar zaizkio** (7); **erantsi beharko** (14); **erantsi beharra** (6); **erantsi beharra dago** (4); **erantsi beharrik** (5); **erantsi dio** (10); **erantsi diot** (5); **erantsi diote** (5); **erantsi dioten** (4); **erantsi dizkiote** (10); **erantsi du** (87); **erantsi dut** (5); **erantsi dute** (4); **erantsi edo** (4); **erantsi egin** (6); **erantsi ere** (7); **erantsi eta** (25); **erantsi eta eratxiki** (6); **erantsi**

gabe (19); **erantsi gisa** (5); **erantsi handiagoko** (4); **erantsi handiko** (4); **erantsi hori** (4); **erantsi horri** (4); **erantsi izan** (10); **erantsi nahi** (35); **erantsi nahi izan** (14); **erantsi nion** (19); **erantsi nuen** (43); **erantsi ohi** (6); **erantsi zaio** (12); **erantsi zaizkio** (4); **erantsi zenuen** (5); **erantsi zidan** (11); **erantsi zien** (6); **erantsi zion** (55); **erantsi zioten** (17); **erantsi zituen** (7); **erantsi zitzaion** (13); **erantsi zitzaizkion** (5); **erantsi zizkion** (9); **erantsi zizkioten** (5); **erantsi zuen** (695); **erantsi zuen berehala** (5); **erantsi zuen gero** (7); **erantsi zuen harryk** (5); **erantsi zuen otegik** (4); **erantsi zuen ronek** (4); **erantsi zuenez** (46); **erantsi zuten** (21)

erantsiak dira (4); **ere erantsi** (17); **ere erantsi behar** (4); **eskua erantsi** (10); **eskurik erantsi** (4); **eta erantsi** (102); **eta erantsi nuen** (6); **eta erantsi zuen** (70); **eta gero erantsi** (7); **ez erantsi** (5); **ezer erantsi** (11); **ezinbestekoa dela erantsi** (4); **gehiago erantsi** (14); **gero erantsi** (12); **gero erantsi zuen** (8); **hau erantsi** (15); **hau erantsi zuen** (7); **hauxe erantsi** (5); **honela erantsi** (4); **horiei erantsi** (7); **horiei erantsi behar** (5); **horri erantsi** (11); **horri erantsi behar** (8); **izan dela erantsi** (4); **segidan erantsi** (4); **zela erantsi** (6); **zela erantsi zuen** (5); **zer erantsi** (6); **zera erantsi** (14); **zera erantsi zuen** (9); **zerbait erantsi** (9)

balio erantsiaren (20); **balio erantsiaren gaineko** (11); **bat erantsiko** (10); **bat erantsirik** (4); **bat erantsita** (8); **bat erantsiz** (8); **elkarri erantsita** (8); **erantsiaren gaineko** (11); **erantsiaren gaineko zerga** (7); **erantsiaren zerga** (4); **erantsiko dio** (4); **erantsiko diogu** (4); **erantsiko dut** (7); **erantsiko nuke** (8); **erantsiko nuke nik** (5); **erantsiko zion** (4); **erantsiriko zerbait** (4); **erantsita daukan** (4); **erantsiz gero** (7); **ere erantsiko** (5); **esentziari erantsiriko** (4); **eskua erantsiko** (6); **eskurik erantsiko** (5); **zela erantsiz** (4)

---

erantsidun *izlag* erantsikoa.

Euskal enpresek ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatu izanak balio **erantsidun** produktuak eskaintzeko eta lehiakorragoak izateko aukera eman die. Berria - Ekonomia

Dena dela, arriskuoi aurre egiteko balio **erantsidun** produktuak eskainiko dituzte enpresen %49k eta %35ek barne kostuak murriztuko ditu. Berria - Ekonomia

---

erantzarazi, erantzaraz, erantzarazten *(orobat **erantziarazi** g.er.)* du *ad* eranztera behartu.

Neska bat **erantzarazi** eta inolaz ere nahi izan zuen Edgarrek gibelaldea usna niezaion, ateraldi xelebreak zituen beti gure Edgarrek. Joxan Elosegi

Roberto Herasek uste baino beranduago jantzi du urrezko maillota, baina behin soinean duela, nekez erantziko du, edo **erantzaraziko** diote. Berria - Kirola

Haserre sutan, **erantzarazi** egin zion Andronikori purpurazko soinekoa eta jantziak urratu. Elizen arteko biblia

Ardura handiz santua zaintzen zuten anaietako batek, asmo oneko amarrua erabiliz, tunika **erantzarazi** zion, astintzeko. Askoren artean

Hitz eztiz eta ohore artean hartu zuen, baina gero, mila dinar balio zuen soinekoa **erantziarazi**, eta hamar balio zuen tunika zarpail bat eskaini zion. Patxi Zubizarreta

Arropak **erantzarazi**, multzotan sailkatu dituzte: galtzontziloak galtzontziloekin, alkandorak alkandorekin. Pablo Sastre

---

erantzi, erantz, eranzten *(**1.006** agerraldi, **177** liburu eta **37** artikulutan; ETCn **4.651** agerraldi)* **1** da/du *ad* soinekoez eta kidekoez mintzatuz, soinetik kendu.

Eranzten ez zela ikusita, ea zeren zain zegoen galdetu nion, eta, aldameneko gelan emakume bat larrugorririk zegoela jakinda, bera ez zela **erantziko**. **-Erantziko** al naiz berriz ere? Inazio Mujika Iraola

Madame Lil ez zen osorik **erantzi**. Lutxo Egia

Eta gero, gau batean, berandu, oherako **eranzten** ari zela, neskak atea jo zion, lotsati. Irene Aldasoro

Erantzi eta jantzi bitartean, garbi ikusi zuen anai Rufinok aipatutako zauria. Askoren artean

Ez baitzen gauza bere kabuz janzteko eta **eranzteko**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahulegi nengoen mugitzeko, eta berak **erantzi** ninduen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ahulegi nengoen mugitzeko, eta berak **erantzi** ninduen. Xabier Mendiguren Elizegi

Sarritan, hain zuzen, bere jantziak **erantzi** eta behartsuak janzten zituen. Askoren artean

Jantziak **erantziko** dizkizute eta zure bitxiez jabetuko. Elizen arteko biblia

Arropa bustia **eranztea** ere nekeza egin zitzaidan, hain nengoen ezer egiteko gogogabetua. Juan Luis Zabala

Arropa guztia **erantzita**, Lubis bere anaiarengana jaitsi zen, eta elkarri bultzaka hasi ziren biak, barrezka eta garrasika. Bernardo Atxaga

Annak dantzarako soinekoa **erantzi** eta kamisoia jantzi zuen. Lopez de Arana

Amak mantala **erantzi** eta ohiko otoitzarekin bedeinkatu zuen mahaia. Anjel Lertxundi

Profetak **erantzi** zuen berehala begiak estaltzen zizkion zapia. Elizen arteko biblia

- **Erantzi** beloa eta elkarrekin erreko dugu. Patxi Zubizarreta

Anaiaren batek, deabruak zirikaturik, sexu-harremanik izan baleza, ken bekio abitua, bere bekatu dorpeaz galdua baitu hura janzteko eskubidea; **erantz** beza erabat, eta gure Elkartetik egotzia izan bedi zeharo. Askoren artean

Bere soineko bikainak **erantzirik**, ihesi doan esklaboaren antzera ibili zen landan zehar. Elizen arteko biblia

Oinetatik bururaino jantzirik lo egiten zuen, longaina bera ere **erantzi** gabe. Jose Morales

Eserita topatu zuen Peppone, baina gabardina **erantzi** gabe. Koldo Biguri

Zakua **erantzi** gabe etzaten zen eta buru-apal zebilen. Elizen arteko biblia

Aita kapela **erantzi** gabe sartu zen barrura. Koldo Biguri

Zamanilovka herrixka urrun al zegoen galdeturik, txanoa **erantzi** zuten bi mujikek. Jose Morales

Eskularruak eta kaskoa **erantzi**, anorak urdinaren kremailera zentimetro batzuk jaitsi eta zain geratu da. Pello Lizarralde

Goantea **erantzi** eta atzamar mamiak erretratu makinaren parte metalikoan itsatsiko zaizkizu. Joseba Sarrionandia

Atorra eta galtzerdiak **erantzita**, galtza hutsetan nengoen ohe gainean. Aingeru Epaltza

Bera begiak zabal zabalik geratu zen, eskafandra **eranzten** zuela, ondo konprenitu gabe bezala: [...]. Joseba Sarrionandia

Erantzi soinean daramazun dolu-jantzia eta kendu oinetakoak. Elizen arteko biblia

Horrek erraztu zizkidan latex babestailea **eranzteko** lanak. Aingeru Epaltza

Oinetakoak **erantzi** eta hondartzan egin genuen bidearen zati bat. Juan Luis Zabala

Behin baino gehiagotan hurbildu zen ohera, botak **erantzi** eta lotaratzeko asmoz. Jose Morales

Jakanarru beltza, artilezko jertse beltz tarratatua, bakero beltzak eta uda zein negu **erantzi** ere egiten ez zituen Doc Marteensak. Unai Iturriaga

Horregatik **erantzi** dituzu zuk zeure jantziak, hau da, munduko ondasunak. Askoren artean

Galtzontziloak **erantzi** nizkion kontu handiz. Aitor Arana

Leize baten tamainako tximiniaren ondoko aulkian eserarazi ninduen izebak segituan, eta zapatak **erantzi** zizkidan. Koro Navarro

Bi sektoreko etapan, egun osoan kulotea **erantzi** gabe ibiltzea ez da oso atsegina izaten. Berria - Kirola

Nik neuk eta nire senide laguntzaile eta guardakoek ere **erantzi** gabe egiten genuen lo, armak eskura genituela. Elizen arteko biblia

Erantzia zuen bere kapela, eta harrotua ilea. Koro Navarro

Emazteak kapela eta kapa **erantziak** zituen eta ispilu kulunkari handi baten aurrean zegoen, gerruntzea askatzen. Irene Aldasoro

Orduan nirekin heldu den emaztekia **eranzten** hasi da, baita biluzgorri gelditu ere irri-arra batean. Aingeru Epaltza

Gerritik gora **eranztea** lortu zuen antze handiz eta. Karlos Zabala

Jantziak emeki-emeki **eranzten** hasi zen. Lutxo Egia

Alde batera, harritu egiten nauzu, David -esan zidan haietako egun batean Lubisek, Iruainera itzuli eta zaldiei zela **eranzten** ari ginela-. Bernardo Atxaga

Aitatxik berak **erantzi** zuen San Krispinen irudiaz gazteluko kapera. Aingeru Epaltza

2 *hed/irud*

Arianek betaurreko borobilak **erantzi** zituenean, Goio harrituta geratu zen neskaren bekainen arku perfektu arkatzez marraztuari begira. Joseba Sarrionandia

-Ba al dakizue zergatik **erantzi** dudan eraztuna? -galdetu zigun gero-. Bernardo Atxaga

Orduan mendekurik hartzen ez badut, buruan daramadan koroia **erantziko** dut betiko. Juan Kruz Igerabide

Erantzi orain bitxiak, eta ikusiko dut zer egin zuekin. Jose Antonio Mujika

Iturri batera iritsi zen; han, zaldun bat zegoen etzanda, lotan, armak **erantzita**. Juan Kruz Igerabide

Berak **erantzi** dit ohorea, berak kendu duintasunaren koroa. Elizen arteko biblia

Larruzko jantziak egin zizkion, haietan gizakiaren hilkortasuna adieraziz, **erantziak** baitzituen errugabetasunaren jantziak. Askoren artean

Jerusalem, **erantzi** nahigabe eta zoritxarraren soinekoa, jantzi betiko Jainkoak damaizun ospearen soineko ederra. Elizen arteko biblia

Rita Hayworth Gilda filmean eskularru luze hura eranzten, platanoari azala **eranztea** ere zilegi ez zenean. Harkaitz Cano

Orduan -segitzen du Reclus-ek-, berezitasun etniko guztiez **erantzirik**, bazter orotan gizonak senidetzat ezagutuko du gizona, eskubide berberen jabe, justizia eta bertutezko ideal beraren lekuko. Iñaki Segurola

Behinola, Jeriko ondoan zegoela, eskuan ezpata **erantzia** zuen gizon bat ikusi zuen Josuek bere aurrean. Elizen arteko biblia

Proposamen hutsalak **erantzi** nahi izan dizkiozue legeari eta gazteak laguntzeko ez dute inolako ekarpenik egingo. Berria - Ekonomia

Balio politikoa **erantzi** zitzaion. Berria - Euskal Herria

Ez jarraitu elkarri gezurrak esaten, izaera zaharra eta beronen araberako jokabidea **erantzi**. Elizen arteko biblia

Parera heldu zenean, eskuineko eskua sabelpetik **erantzi** eta armairua zabaldu zuen. Unai Elorriaga

Hizkuntzarekin esperimentatu zuen: hezurdura bakarrik utzi arte **erantzi** zuen. Berria - Kultura

Erantzi, gure sinesmenaren apaingarri eta eusgarri ziren ainbat gauza kenduz. Herria

3 (norbaitek beste norbait)

Orduan San Frantziskok segituan ura beroarazi zuen usain gozozko belar ugarirekin, **erantzi** zuen ondoren legenduna eta bere eskuz garbitzen hasi zen, anaia batek ura isurtzen ziolarik. Askoren artean

Ahulegi nengoen mugitzeko, eta berak **erantzi** ninduen. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abitua erantzi (3); **alkandora erantzi** (3); **arropa erantzi** (12); **arropa erantzi eta** (4); **arropak erantzi** (27); **arropak erantzi eta** (14); **arropak erantzi gabe** (3); **bat erantzi** (6); **bat erantzi eta** (5); **beloa erantzi** (4); **beltza erantzi** (4); **beltzak erantzi** (3); **berak erantzi** (6); **bere jantziak erantzi** (3); **berehala erantzi** (3); **berokia erantzi** (5); **betaurrekoak erantzi** (11); **betaurrekoak erantzi eta** (5); **botak erantzi** (8); **botak erantzi eta** (3); **elastikoa erantzi** (3); **erantz ezazu** (3)

erantzi baino (4); **erantzi baino lehen** (3); **erantzi behar** (7); **erantzi behar izan** (5); **erantzi bitartean** (5); **erantzi du** (10); **erantzi dute** (4); **erantzi egin** (22); **erantzi egin behar** (3); **erantzi egin zen** (3); **erantzi egin zituen** (3); **erantzi egin zuen** (3); **erantzi egingo** (3); **erantzi egiten** (6); **erantzi ere** (5); **erantzi eta** (188); **erantzi eta bere** (6); **erantzi eta boozi** (3); **erantzi eta lurrera** (3); **erantzi eta ohean** (3); **erantzi ezak** (3); **erantzi gabe** (35); **erantzi izan** (3); **erantzi nahi** (5); **erantzi nahi izan** (3); **erantzi nahian** (3); **erantzi nituen** (8); **erantzi nizkion** (4); **erantzi nuen** (7); **erantzi oinetakoak** (4); **erantzi zeure** (3); **erantzi zeure tunika** (3); **erantzi zituen** (31); **erantzi zituen eta** (3); **erantzi zituenean** (3); **erantzi zituzten** (6); **erantzi zizkidan** (4); **erantzi zizkion** (5); **erantzi zuen** (56); **erantzi zuen eta** (3); **erantzi zuenean** (3); **erantzi zuten** (4)

ere erantzi (7); **ere erantzi gabe** (4); **eskularruak erantzi** (4); **eta erantzi** (10); **eta erantzi egin** (5); **eta oinetakoak erantzi** (3); **gabardina erantzi** (10); **gabardina erantzi eta** (5); **galtzak erantzi** (5); **galtzak erantzi eta** (3); **galtzerdiak erantzi** (4); **galtzontziloak erantzi** (7); **guztia erantzi** (3); **guztiak erantzi** (8); **guztiak erantzi eta** (5); **ilunak erantzi** (3); **jaka erantzi** (20); **jaka erantzi eta** (5); **jaka erantzi zuen** (4); **jakanarrua erantzi** (3); **jantzi guztiak erantzi** (3); **jantzia erantzi** (9); **jantzia erantzi eta** (6); **jantziak erantzi** (16); **jantziak erantzi eta** (10); **kapa erantzi** (5); **kapa erantzi eta** (3); **kapela erantzi** (27); **kapela erantzi eta** (11); **kapela erantzi zuen** (7); **kapelua erantzi** (6); **kuleroak erantzi** (3); **mantala erantzi** (4); **oinetako bat erantzi** (4); **oinetakoak erantzi** (14); **oinetakoak erantzi eta** (4); **prakak erantzi** (3); **soinekoa erantzi** (9); **soinekoa erantzi eta** (3); **soinekoak erantzi** (5); **soinekoak erantzi eta** (3); **soingainekoa erantzi** (5); **tunika erantzi** (5); **txanoa erantzi** (3); **txapela erantzi** (6); **zamarra erantzi** (4); **zapatak erantzi** (10); **zapatak erantzi eta** (3); **zapatak erantzi nituen** (3); **zapatilak erantzi** (3)

arropak erantziko (3); **betaurrekoak erantzirik** (3); **erantzia zuen** (5); **erantziak zituen** (4); **erantziko ditiat** (3)

---

erantziarazi ik **erantzarazi**.

---

erantzuki[1] **1** *iz* norbaiti bere hutsa edo gaizki egina aurpegira botatzea edo gaitzestea; horretarako erabiltzen diren hitzak. ik **erasia**.

Desira asko, gogoeta asko, salaketa asko eta **erantzuki** asko dabilkit buruan. Josu Zabaleta

Maizen darabilten hizkera **erantzukia** da. Markos Zapiain

Erantzuki guztietan dago egiazko zerbait. Josu Zabaleta

Azkenekoa izaki, ezin nintzen elkarrekin bizi genuen bake une hartaz poztu, baina **erantzuki** hartan eman behar ote nuen bizi guztia? Joxan Elosegi

Zuk, goiko solairukoek jaurtitako hainbeste **erantzuki** jasan izan behar dituzun eta hainbeste injustizia ikusi behar izan duzun horrek! Josu Zabaleta

Zin-zinez sinets nazazu halaber, andrea, ezen **erantzukietarik** salbuetsia naizen arren, ez naizela damuetarik salbuetsia. Jon Muñoz

Ez dakit zergatik, beste behin ere, neuri egozten zidan **erantzukia** zela iruditzen zitzaidan, hots, neu gaitzesten ninduela, neurea izan balitz bezala poemak zerraldotik berreskuratzeko ideia. Ramon Saizarbitoria

Zeren oraindik ere barrena jaten ari baitzait hain asaldaturik nengoen hartan idaztera ausartu nintzaion gutun zital harengatiko **erantzukia**. Josu Zabaleta

Begiak handi-handi zituen, eta oso triste eta **erantzukiz** zegokidan begira, esanez bezala: "Oi, Anne, zergatik abandonatu nauzu? Josu Zabaleta

2 *erantzuki egin*

Txantxa haien aitzinean, Mattin eta biok edonoiz hasten ginen irri-karkaraka, eta amari ere, ahantzirik behingoz kontua hartu eta **erantzuki egin** behar zigula neurriz kanpoko barreak egiteagatik, irri tipi bat marrazten zitzaion ezpainetan. Joan Mari Irigoien

-Vasienka, mesedez, aitaz ari zara! -ama zaharra tente-tente jarri zen, **erantzuki eginez**. Jose Morales

"Zure alabak zugandik ari dira esajeratzen ikasten", **egin** zion **erantzuki** Ramsay jaunak. Anton Garikano

Berriro **egin** zion bere buruari **erantzuki**. Anton Garikano

Ez diezaiogun hemen kausi dezakeen plazer bakarrari lotu izanaz **erantzukirik egin** Valmont jaunari. Jon Muñoz

Hemendik aurrera erabat arbuiatzen ditut munduari **egin** dizkiodan **erantzukiak**. Josu Zabaleta

Neure buruari ez diot **erantzukirik** jadanik **eginen** zurekin ezkutukerian ibiltzeagatik. Jon Muñoz

· **Egiten** zaion **erantzuki** edo salaketa bakoitzeko, promesa eder bat eskainiko dizu, baina gero ez da inoiz beteko Bakar-bakarrik ikusten nuen neure burua, hainbeste desanimatzen eta adoregabetzen ninduten **erantzuki** haiek gehiago **egingo** ez ziezazkidaten modukoa bihurtzeko lan gaitz hari ekiteko. Josu Zabaleta

---

erantzuki[2] *adlag* erantzuten.

Alcide Jolivet esaldi luzeez ari eta ari, eta Harry Blount hitz silababakarrez **erantzuki**. Karlos Zabala

---

erantzukigile *iz* erantzuki egiten duen pertsona.

Ezin abilagoa izan zen **erantzukigileak** paretik kentzen, iaioena korromiozko mila eltxo algara itzel bakar batez uxatzen. Markos Zapiain

Fernandok zorabiatu egiten ditu bere hitz jolas eta zirtoekin oloa errekan bezala harropuzten diren handi-mandiak, antzerki ikusgarriak antolatzen ditu herriaren aurrean, **erantzukigileen** benetako tamaina barregarria nabarmentzearren. Markos Zapiain

erantzukin ik **erantzukizun**.

---

erantzukizule *iz* erantzukizuna duena.

Galdera bat ere egin zien: ea zergatik onartu duten Aljeria jotzea Mendebaldeko Saharako gatazka ez konpontzearen **erantzukizuletzat**. Berria - Harian

---

erantzukizun *(1.860 agerraldi, 130 liburu eta 1.105 artikulutan; ETCn 27.352 agerraldi; orobat **erantzunkizun** g.er. eta **erantzukin** g.er.)* **1** *iz* erantzule izatea; hortik datorren eginbidea. ik **erantzunbehar**.

Erabakiak hartzeko orduan, askatasuna; erabaki horien berri emateko orduan, argitasuna; eta erabakien ondoan sortutako ondorioen aurrean, **erantzukizuna**, onerako nahiz txarrerako. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Kontrol, **erantzukizun** eta legeez kanpo diharduen espetxe sistema bat. Berria - Mundua

Erantzukizunak presioa ere badakar, emaitza onak lortzeko beharra. Berria - Kirola

Kontrol lanak, **erantzukizunak**, nekea dakarrelako, neke handia. Berria - Kirola

Uste dut etxeko zaharrek sakon markatu zizkidatela lan-zaletasuna, zuhurtasuna eta **erantzukizuna**. Ana Urkiza

Herri erakundeak izan beharko lirateke azken hitza dutenak, erabakiaren **erantzukizuna** herri erakundeei baitagokie. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Begi-bistakoa zen aita damu zela, ez bakarrik **erantzukizun** guztia amonaren esku utzi izanaz, baita ezin zuelako ere amonak egindako lanen arriskua ezagutu eta kontrolatu. Anjel Lertxundi

1992. eta 1999. urteen artean egindako lau gerren **erantzukizuna** Milosevici egotzi behar zaio. Berria - Mundua

Baina ezin diogu **erantzukizuna** Gobernuari egotzi. Berria - Harian

Erantzukizun hori "kategoria" filosofikotzat proposatzen da, askatasunaren eta erabakiaren ("fiat") domeinu sakratutzat. Joseba Zulaika

Gaztetxoak isilik geratu dira, **erantzukizun** horren zama astunegi balitzaie bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Frantziak munduaren **erantzukizuna** zuen. Josu Zabaleta

Krimen horien **erantzukizuna** ez dela inoiz baliogabe gertatzen adierazi zuen Beltranek. Berria - Harian

Juduen gudua eta heien kontrako ozarkeriak ez ditu ahantzi, Polonian gertatuekin eta batzuen eta besteen **erantzukizun** eta hobenez deus gorde gabe, nahiz hor ere zuhurki. Herria

Une latzetan ezinbestekoa da **erantzukizuna** hartzea. Berria - Kirola

Hencke-Bosch Sozietate Mugatuaren ordezkari eta iloba bera baitzen, Herbertek hartu zuen bere gain **erantzukizuna**. Joxe Austin Arrieta

Ez al zaik iruditzen gertatutakoaz **erantzukizunen** bat dugula beraren aurrean? Xabier Olarra

Zuzendaritzaren **erantzukizuna** hartu nuen nire gain, desgogara edo nahiezik, baina indar handiz. Karlos Linazasoro

Gutxienekoa, orduan, ikuskizun haren aurrean, errudunak edo **erantzukizunak** eskatzen hastea zen. Karlos Linazasoro

Azpikontratatzea **erantzukizuna** alde batera uzteko erabiltzen dute erakundeek. Berria - Ekonomia

[Bhopalen] inoizko hondamendi industrialik larrienetakoa eragin zuen Union Carbidek (Dow Chemicals, egun); enpresak ez du ia kalte-ordainik eman, ez ditu hondakinak garbitu eta ez du **erantzukizunik** onartu. Berria - Gaiak

Helburu horretara iristeko behar-beharrezkoa izango da herritarrek eta komunitateek, enpresek eta erakundeek, maila guztietan, dagozkien **erantzukizun** eta ardurak onartzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Alor politikoan, berriz, Alfonso Alonso alkatea bera engainatu zutela esan izanak ez duela bere **erantzukizuna** zuritzen ondorioztatu du batzordeak. Berria - Ekonomia

Euskal zinemaren etorkizuna, hein handi batean, **erantzukizun** horri erantzuteko moduan legoke. Berria - Kultura

Lurraren berotzean duen **erantzukizuna** ezkutatzen ibili da Brasil. Berria - Gaiak

Erantzukizun hori "kategoria" filosofikotzat proposatzen da, askatasunaren eta erabakiaren ("fiat") domeinu sakratutzat. Joseba Zulaika

Neure gain hartua dut mutikoaren **erantzukizuna** aitaren aurrean. Jose Antonio Mujika

Gehiegizko pozak ito egiten du, **erantzukizunaren** pisuak gainezka egiten dio. Lourdes Oñederra

Nire **erantzukizunaren** zamak gainezka egiten zidan, begiak zabal-zabalik neuzkan eta ez nuen deus ere ikusten. Monika Etxebarria

Eskertu egiten dizut, esan zuen, zure **erantzukizuna** inplizituki onartu izana. Jon Alonso

Gizon horren heriotzaren **erantzukizuna** leporatu nahi diguzue. Elizen arteko biblia

Erantzukizunak autoritatea ematen du, ulertzen? Lander Garro

Tratu pribaturen bat zuen amarekin bere **erantzukizunari** aurre egiteko. Ramon Saizarbitoria

1997an UNESCOk onartu egin zuen egungo belaunaldiek etorkizuneko belaunaldiekiko duten **erantzukizunari** buruzko Adierazpena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Egiaz hurbileko ahaide nauzu eta legez zurekiko **erantzukizuna** dut. Elizen arteko biblia

Autonomiak beti dakarrela berarekin, eta ezinbestean eraman behar duela gainera, **erantzukizuna**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

PSOEren **erantzukizunaz** ohartarazi du LABek. Berria - Euskal Herria

Auzian **erantzukizunez** jokatzen ez duen bakarra zuzendaritza dela uste du sindikatuak. Berria - Ekonomia

Honela, samina gozotzat hartu zuen, eta geratzen zitzaizkion **erantzukizunetarako** gizonki prestatu zen. Askoren artean

Ez dut nik **erantzukizunik** honen heriotzan. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egoeraren «**erantzukizun** bakarra» zuzendaritzarena eta erabakiak nahi bezala hartzen uzten dituen klase politikoarena dela uste du. Berria - Ekonomia

Enpresaren **erantzukizun** soziala. Iñaki Heras

Informazioa globalizatzea **erantzukizun** zibila ahalbidetzea eta herritarren eskubideak sendotzea da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hortxe du zientzialariak **erantzukizun** zuzen-zuzena. Juan Garzia

Alderdi interesatuak -herritarrak eta **erantzukizun** politikoak dituztenak- biltzea iraunkortasunaren alde lan aktiboa egin behar delako ideiaren inguruan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Indultuei-eta dagokienez, berriz, ministeriotza eta funtzionariotzako karguak **erantzukizun** penaletik libratzeko hain zaharrak ez diren indultu kasuak ere ezagutzen ditugu. Jokin Urain

Erantzukizun metafisikoaren eta egoismo pornografikoaren arteko amildegia. Anjel Lertxundi

Artearen benetako autonomiak ez dizkigu giza **erantzukizunak** barkatzen; izatekotan ere, koska bat gehiago estutzen saiatzea eskatzen digu. Anjel Lertxundi

Poetari, poeta den aldetik, **erantzukizun** artistikoak galdegiten eta estimatzen zaizkio, literatura ez baita soziologiaren, politikaren edo historiaren suzedaneo edo sendabelar bat. Anjel Lertxundi

Poetak, herritarra izaki bera ere, **erantzukizun** herritarrak ditu, Camusek kontatzen duenaren bidetik, besteak beste. Anjel Lertxundi

Gizakiarena da flora eta fauna basatiaren eta beronen habitataren ondarea babesteko eta zentzuz administratzeko **erantzukizun** berezia. bere gobernuak sarraskian eduki zuen **erantzukizun** begi-bistakoa estaltzeko edo erlatibizatzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Prestigioko irakasleak Euskal Herriko Unibertsitatean, iraganean **erantzukizun** handiak izan dituzte unibertsitatean, eta etorkizuneko ateak ere zabalik dituzte. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hein handi batean **erantzukizun** erraldoia dute, baina euskaldunek berek ere bai funtsean. Itxaro Borda

Lortzen ditugun emaitzen ondorioak geuk jasango baditugu, geurea izan beharko litzateke **erantzukizun** osoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gobernuaren **erantzukizuna**, erabatekoa, biribila eta erreala, lausotua geratzen zen, difuminatua azpijokozko itsaso baten erdian. Jon Alonso

Oraingo sistemak eredu iraunkor baterantz jotzea lortzeko ahaleginean murgildutako gizarte eragile ororen arteko elkarrekiko **erantzukizuna** erdietsiko litzateke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Biltzar Nagusietako talde politikoei egoeraren «zeharkako **erantzukizuna**» izatea leporatu die. Berria - Ekonomia

Irakasle ez diren langileek ez lukete izan behar inolako **erantzukizunik**, ez iritzia emateko biderik, irakaskuntza akademikoarekin zuzenean loturik dauden arazoetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Fiskalak ez duelako oraindik frogarik erakutsi, eta ustezko **erantzukizun** pertsonalak ere ez dituelako zehaztu. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezagutzen dugun gizarte bilbea osatzen duten pertsonek, erakundeek eta egiturek jakin behar dute **erantzukizun** printzipioa norberari aplikatuta abiatzen dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Krisi honetan Mendebaldeko herriak, eta agian amerikar herria batez ere, ohartzen ziren **erantzukizun**-zamaz. Iñaki Mendiguren

Ulertarazi behar digute, halaber, "hondar-alearen" kontua gizarteak oro har partekatu behar duen **erantzukizun** kontu bat dela egiaz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erantzukizun lanpostuetan aritzeko (errektore, dekano, etab.). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zerbitzuak neurri bateko arriskuak eragin baldin baditzake, herrialdeek bermatu beharko dute enpresek **erantzukizun** aseguru bat izatea. Berria - Harian

Besteen **erantzukizun** faltaren hutsuneak ezin konpondu, besteek utzitako desordena nola konpondu ezin asmatu. Lander Garro

Harremana, alde batetik, kategoria penalen eta **erantzukizun** maila gutxituen gisako zehaztapen planoen eta, bestetik, ezaugarritze psikologikoen planoen artean. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horregatik, erreinu guztiko gobernu-**erantzukizuna** berari emateko asmotan zebilen erregea. Elizen arteko biblia

Gipuzkoa Donostia Kutxak Gizarte **Erantzukizun** Korporatiboaren lehenengo txostena aurkeztu zuen atzo. Berria - Ekonomia

"Enpresaren gizarte **erantzukizun** bakarra mozkinak lortzea da" zioen Milton Friedman liberalak. Iñaki Heras

Burua galdu eta Jainkoaz eta beren epaile-**erantzukizunaz** ahaztu egin ziren. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

baina erantzukizun (4); **bere erantzukizun** (4); **da erantzukizun** (5); **duen erantzukizun** (8); **dute erantzukizun** (7); **duten erantzukizun** (5); **erantzukizun bakarra** (4); **erantzukizun bat** (6); **erantzukizun batzuk** (4); **erantzukizun berezia** (6); **erantzukizun eta** (12); **erantzukizun guztia** (17); **erantzukizun guztiak** (9); **erantzukizun handia** (39); **erantzukizun handia da** (5); **erantzukizun handiagoa** (9); **erantzukizun handiena** (4); **erantzukizun handiko** (5); **erantzukizun hori** (16); **erantzukizun horrek** (4); **erantzukizun maila** (5); **erantzukizun morala** (6); **erantzukizun nagusia** (10); **erantzukizun osoa** (39); **erantzukizun penalak** (4); **erantzukizun politiko** (10); **erantzukizun politiko eta** (5); **erantzukizun politikoa** (16); **erantzukizun politikoak** (18); **erantzukizun sozial** (4); **erantzukizun soziala** (4); **erantzukizun zibila** (4); **erantzukizun zuzena** (8); **ere erantzukizun** (6); **eta erantzukizun** (40); **gizarte erantzukizun** (4); **heriotzaren erantzukizun** (4); **horren erantzukizun** (4); **zer erantzukizun** (6); **zuen erantzukizun** (5)

atentatuaren erantzukizuna (7); **atentatuen erantzukizuna** (7); **bahiketaren erantzukizuna** (4); **baina erantzukizuna** (4); **bere erantzukizuna** (33); **beren erantzukizuna** (4); **da erantzukizuna** (9); **dagokion erantzukizuna** (5); **du erantzukizuna** (5); **duen erantzukizuna** (21); **dugun erantzukizuna** (4); **dute erantzukizuna** (6); **duten erantzukizuna** (12); **egoeraren erantzukizuna** (4); **emateko erantzukizuna** (4)

erantzukizuna argi (4); **erantzukizuna azpimarratu** (4); **erantzukizuna bere** (42); **erantzukizuna bere gain** (40); **erantzukizuna berea** (4); **erantzukizuna beren** (4); **erantzukizuna beren gain** (4); **erantzukizuna beste** (6); **erantzukizuna bizkar** (7); **erantzukizuna bizkar gain** (6); **erantzukizuna da** (31); **erantzukizuna dela** (13); **erantzukizuna du** (14); **erantzukizuna duela** (7); **erantzukizuna duen** (6); **erantzukizuna dute** (4); **erantzukizuna dutela** (4); **erantzukizuna ere** (15); **erantzukizuna eskatu** (7); **erantzukizuna eta** (18); **erantzukizuna ez** (15); **erantzukizuna gure** (4); **erantzukizuna gure gain** (4); **erantzukizuna handia** (6); **erantzukizuna har** (7); **erantzukizuna hartu** (31); **erantzukizuna hartu behar** (9); **erantzukizuna hartu eta** (6); **erantzukizuna hartu zuen** (7); **erantzukizuna hartzea** (8); **erantzukizuna hartzeko** (17); **erantzukizuna hartzen** (6); **erantzukizuna izan** (8); **erantzukizuna izango** (6); **erantzukizuna izatea** (5); **erantzukizuna leporatu** (4); **erantzukizuna leporatzen** (5); **erantzukizuna nabarmendu** (9); **erantzukizuna nabarmendu du** (6); **erantzukizuna onartu** (13); **erantzukizuna onartzeko** (7); **erantzukizuna orain** (4)

erasoaren erantzukizuna (17); **erasoen erantzukizuna** (4); **ere erantzukizuna** (4); **eta erantzukizuna** (40); **euren erantzukizuna** (6); **gaineko erantzukizuna** (5); **gertatutakoaren erantzukizuna** (7); **gidatzeko erantzukizuna** (4); **gizarte erantzukizuna** (11); **gobernuaren erantzukizuna** (8); **gure erantzukizuna** (7); **guztiaren erantzukizuna** (5); **guztien erantzukizuna** (8); **guztion erantzukizuna** (4); **haren erantzukizuna** (4); **hartu zuen erantzukizuna** (6); **heriotzaren erantzukizuna** (5); **hilketaren erantzukizuna** (4); **horien erantzukizuna** (5); **horren erantzukizuna** (16); **izanaren erantzukizuna** (9); **izandako erantzukizuna** (4); **izateko erantzukizuna** (4); **luke erantzukizuna** (4); **nire erantzukizuna** (4); **partidaren erantzukizuna** (5); **zuen erantzukizuna** (16); **zuen erasoaren erantzukizuna** (6); **zure erantzukizuna** (4); **zuten erantzukizuna** (5)

bere erantzukizunak (11); **bere erantzukizunari** (7); **bere erantzukizunari aurre** (4); **dituen erantzukizunak** (4); **du erantzukizunik** (5); **duten erantzukizunaz** (4); **erantzukizunak argitu** (6); **erantzukizunak argitzeko** (7); **erantzukizunak eskatu** (15); **erantzukizunak eskatu dituzte** (4); **erantzukizunak eskatuko** (5); **erantzukizunak eskatzeko** (5); **erantzukizunak eta** (6); **erantzukizunak hartzeko** (9); **erantzukizunaren eta** (4); **erantzukizunaren zati** (6); **erantzukizunaren zati bat** (4); **erantzukizunari aurre** (7); **erantzukizunari buruzko** (4); **erantzukizunari uko** (6); **erantzukizunari uko egin** (4); **erantzukizunei muzin** (5); **erantzukizunen bat** (5); **erantzukizunez eta** (5); **erantzukizunez jokatu** (13); **erantzukizunez jokatu behar** (6); **erantzukizunez jokatzea** (4); **erantzukizunez jokatzeko** (14); **erantzukizunez jokatzeko eskatu** (12); **erantzukizunik ez** (12); **erantzukizunik hartu** (6); **erantzukizunik hartu nahi** (4); **erantzukizunik izatea** (4); **ere erantzukizunik** (4); **eta erantzukizunak** (18); **eta erantzukizunaren** (6); **eta erantzukizunari** (5); **eta erantzukizunez** (11); **ez du erantzukizunik** (5); **inolako erantzukizunik** (10)

---

erantzule *(**887** agerraldi, **77** liburu eta **571** artikulutan; ETCn **10.448** agerraldi)* **1** *iz* zerbaiten erantzukizuna duena.

Ni naiz nagusi, jaun, epaile, **erantzule** nire adimen eta nahimen eta oroimenarena. Egilea hainbat delituren **erantzule** da obra honetan. Jenaro Garate

Gaur egun, "erredakzio elektronikoa" orokortuta, orrialde bakoitzaren diseinua eta muntaia kazetariaren eta haren ordenagailuaren egitekoa delarik, ezin hobenaren **erantzulea** auzoan bilatu. Aingeru Epaltza

Beren hutsegiteen **erantzule** izanen dira. Elizen arteko biblia

Benetako abertzaletasuna herrialde baten parte sentiarazten didana da, herrialde horrek jaiotzerakoan ez nituen segurtasunak eta askatasuna ematen dizkidalako eta, era berean, onartzen ditudan betebeharren **erantzule** egiten nauelako. Berria - Mundua

Neu naiz bada zure eginen **erantzule**. Joxan Elosegi

Entzuten dudanean ezin zaiola inori aurpegiratu torturapean gaizki jokatu duenik, inor ez dela **erantzule** halako egoeran egin edo esan duenagatik, niri behintzat erresumin moduko bat sortzen zait. Agurtzane Juanena

Haiek berak ziren ekoizten zutenaren **erantzule**, ez aginte jakin baten aurrean, pertsona bakoitzaren aurrean baizik. Jon Muñoz

Zerua eta gurasoak iraintzen hasi nintzen, ahoa bete birao jardun nuen, nire patu madarikatuaren **erantzule** egin nituen. Anjel Lertxundi

Txileko torturen **erantzule** izan ziren 2.000 pertsonaren izenak biltzen dituen txostena helarazi du Preso Politiko Ohien Koordinadorak, zigortuak izan daitezen eskatuz. Berria - Mundua

Sekula betiko beharko du izan usteldura horrek dakartzan gehiegikerien eta nahasmenduen **erantzulea**. Jon Muñoz

Egia da, jaunok, halako izugarrikeriak ezin daitezke inpune gelditu, eta neuk bilatu ditut **erantzuleak**. Koldo Izagirre

Nor bere zorionaren **erantzule** da. Lourdes Oñederra

Petrolioa, ikatza eta gasa erretzeak sortzen duen karbono dioxidoa da lurraren berotzearen **erantzule** nagusia. Berria - Harian

Esportazioak izan dira hazkuntza apalaren **erantzuleak**. Berria - Ekonomia

Petrolioa da euroaren indarraren **erantzuleetako** bat. Berria - Ekonomia

Jorge Valdanok garbi du Realaren egoeraren **erantzule** hiru txapelketa jokatzeko ohitura falta dela. Berria - Kirola

Errusiako petrolio ekoizpenaren murrizketa eta energia merkatuetako espekulazioa dira, adituen arabera, garestitzearen **erantzuleak**. Berria - Ekonomia

Herrialde hauek munduko isurketen %30aren **erantzule** dira. Berria - Gaiak

Amen hiltze tasa: Elikadura txarra da haurra izaterakoan sortu ohi diren arazoen **erantzule** nagusia. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aurreko eguneko Ondarretako kartzela-erasoan ere parte hartu zutela, Olagibelen hilketaren **erantzule** zuzenak zirela. Inazio Mujika Iraola

Ziminoa erailketa burutzeko bitarteko hutsa baino ez zen noski izango, eta Lino zeharkako hiltzaile, krimenaren egile intelektual eta justiziaren aurreko **erantzule** bakar. Harkaitz Cano

Berlino **erantzule** nagusia zen, egia, baina Angel ere hiltzailea zen. Bernardo Atxaga

Espainia sahararren sufrimenduaren **erantzule** politikoa eta legala zela adierazi zuen. Berria - Mundua

Oraindik ere ez dagoela erasoaren **«erantzule** intelektuala» nor izan zen jakiterik eta, hartara, ezin dela «ezer baztertu» zehaztu zuen. Berria - Mundua

Iban Zubiaurreren kasuan Athletic **erantzule** subsidiarioa dela ebatzi du epaileak. Berria - Kirola

Halako euri eroak justifikatzen zituzten euritako mordo hura inportatzeagatik ere bera ez zela **erantzule** kontzientea. Bego Montorio

Enpresaren modernizazioaren **erantzule** nagusia zen Ivan, ehunak eta lanjantziak manufakturatzen zituen fabrika zaharkitu bat izatetik, gaur egun den horretara eraman zuena: berrehun eta hogeita bost bat langileri enplegua ematen dien enpresa sendoa. Iban Zaldua

Ekologistak ez dira izan oihartzun zabal horren **erantzule** bakarrak. Edurne Elizondo

Hura zelako benetako **erantzule** zuk Montjuichen egiten duzunaz. Koldo Izagirre

Najaf eta Kerbalako erasoen ustezko 50 **erantzule** atxilotu dituzte. Berria - Mundua

Eskuak, poltsikoetan maltzurki ezkutatzen ziren gorputz-atal arrotz horiek ziren egiazko **erantzuleak**. Berria - Kultura

3 galdera edo kideko bati erantzuten dion pertsona.

Galdeketak, trebetasunez eginez gero, nahitaez eskainiko digu, puntu jakin honen (edo besteren) inguruko informazioa, **erantzuleek** berek badakitela agian konturatu ere ez direna. Koro Navarro

Bazirudien isilpeko marmarrean aritzen zela, halamoduzko bakarrizketan edo **erantzulerik** gabeko elkarrizketaren batean galduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Bikote-frogan **erantzuleari** esaldi-banakoak esanahiaren arabera identifika ditzala galdetzeak ez luke inor nahasi behar. Itziar Laka

-Hementxe bada -nik, ahalean behintzat hotx antzean **erantzule** -. Txillardegi

Gogora etorri zaidan burutazio baten ildotik oroitu naiz Sarrionandiaren erantzun batekin, eta, nik iruzkinduta baino haren hitzetan hobeto geratuko denez gero, pasarte bat ekarriko dut hona, galdetzaile- **erantzuleen** baimena izango dudalakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

athletic erantzule (3); **aurrean erantzule** (4); **bahiketaren erantzule** (4); **bahiketaren erantzule izatea** (4); **baten erantzule** (8); **baten erantzule izatea** (4); **bere ekintzen erantzule** (5); **berotzearen erantzule** (4); **berotzearen erantzule nagusia** (4); **da erantzule** (3); **daitekeenaren erantzule** (5); **dela erantzule** (4); **denaren erantzule** (4); **dira erantzule** (3); **du erantzule** (6); **egin du erantzule** (3); **egin zuen erantzule** (3); **egoera horren erantzule** (4); **egoeraren erantzule** (24); **egungo egoeraren erantzule** (4); **ekintzen erantzule** (8); **ekintzen erantzule bakarra** (3); **erantzule baino** (3); **erantzule baino ez** (3); **erantzule bakar** (4); **erantzule bakarra** (20); **erantzule bakarrak** (10); **erantzule da** (12); **erantzule dela** (5); **erantzule delako** (3); **erantzule dira** (4); **erantzule diren** (6); **erantzule egin** (22); **erantzule egin zuen** (7); **erantzule egiten** (5); **erantzule espainiako** (3); **erantzule eta** (4); **erantzule ez** (7); **erantzule gisa** (3); **erantzule izan** (10); **erantzule izango** (5); **erantzule izatea** (33); **erantzule izatea leporatu** (14); **erantzule izatea leporatzen** (5); **erantzule izateagatik** (4); **erantzule izateko** (3); **erantzule jo** (4); **erantzule jotzen** (3); **erantzule nagusi** (5); **erantzule nagusia** (30); **erantzule nagusiak** (20); **erantzule nagusitzat** (6); **erantzule politiko** (6); **erantzule politikoa** (5); **erantzule politikoak** (4); **erantzule politikotzat** (3); **erantzule politikotzat jo** (3); **erantzule psoe** (3); **erantzule sentitzen** (3); **erantzule zibil** (4); **erantzule zuzen** (3); **erantzule zuzena** (6); **erantzule zuzenak** (5); **erasoaren erantzule** (11); **erasoaren erantzule izatea** (6); **erasoen erantzule** (10); **erasoen erantzule izatea** (3); **erasoren erantzule** (4); **erasoren erantzule izatea** (3); **eta erantzule** (10); **eta horren erantzule** (5); **gerta daitekeenaren erantzule** (5); **gertatutakoaren erantzule** (5); **guztiaren erantzule** (4); **guztien erantzule** (7); **hainbat erasoren erantzule** (4); **haren erantzule** (3); **heriotzaren erantzule** (19); **heriotzen erantzule** (3); **hilketa baten erantzule** (4); **hilketaren erantzule** (6); **honen erantzule** (6); **horien erantzule** (4); **horren erantzule** (39); **horren erantzule nagusia** (4); **istripuaren erantzule** (5); **izanaren erantzule** (9); **krimenen erantzule** (4); **larriaren erantzule** (3); **lurraren berotzearen erantzule** (4); **naiz erantzule** (4); **porrotaren erantzule** (3); **sarraskiaren erantzule** (5); **torturen erantzule** (3); **zuen erantzule** (3)

atentatuen erantzulea (4); **atentatuen erantzuleak** (3); **azken erantzulea** (4); **baina erantzulea** (3); **benetako erantzuleak** (4); **da erantzulea** (6); **dira erantzuleak** (9); **egoeraren erantzulea** (5); **egoeraren erantzuleak** (3); **erantzulea bera** (4); **erantzulea da** (7); **erantzulea dela** (6); **erantzulea eta** (4); **erantzulea eta zela** (4); **erantzulea izan** (5); **erantzulea izatea** (7); **erantzulea izatea leporatu** (3); **erantzulea nor** (4); **erantzuleak atxilotu** (4); **erantzuleak aurkitu** (3); **erantzuleak auzipetzeko** (3); **erantzuleak epaitzeko** (3); **erantzuleak ez** (4); **erantzuleak izatea** (4); **erantzuleak justiziaren** (3); **erantzuleak zigortzeko** (9); **erantzuleak ziren** (3); **erantzuleetako bat** (3); **erantzuletzat jo** (4); **erantzuletzat jota** (3); **erantzuletzat jotzen** (7); **erantzuletzat jotzen du** (3); **erasoaren erantzulea** (7); **erasoaren erantzuleak** (6); **erasoaren erantzuletzat** (3); **erasoen erantzuleak** (4); **eta erantzuleak** (13); **eta erantzuleak zigortzeko** (5); **garestitzearen erantzuleak** (3); **guztien erantzulea** (3); **heriotzaren erantzuleak** (3); **heriotzaren erantzuletzat** (3); **hilketaren erantzuleak** (5); **hilketaren erantzuletzat** (4); **honen erantzulea** (3); **horren erantzulea** (11); **horren erantzuleak** (3); **krimenen erantzuleak** (8); **porrotaren erantzulea** (3); **ustezko erantzulea** (3)

---

erantzun[1], erantzuten *(**22.302** agerraldi, **283** liburu eta **4.673** artikulutan; ETCn **177.359** agerraldi)* du *ad* galdera, oihu edo keinu bat egiten duenari, bere galdera, oihu edo keinuari dagozkion hitzak edo egiteak harenganatu. ik **ihardetsi**. *(ikus beheko konbinatorian* erantzun *aditzaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

adierazpenei erantzun (25); **adierazpenei erantzun zien** (13); **aingeruak erantzun** (15); **aitak erantzun** (12); **amak erantzun** (11); **anai leonek erantzun** (9); **atzo bertan erantzun** (11); **atzo erantzun** (23); **atzo erantzun zion** (10); **aurrean erantzun** (15); **azkar erantzun** (14); **bai erantzun** (11); **baietz erantzun** (151); **baietz erantzun nion** (35); **baietz erantzun zion** (27); **baietz erantzun zuen** (9); **baiezkoa erantzun** (10); **baina erantzun** (26); **baina jesusek erantzun** (10); **bakarrik erantzun** (10); **bat erantzun** (11); **batean erantzun** (21); **batek erantzun** (42); **batek erantzun zion** (19); **batekin erantzun** (52); **batekin erantzun zion** (14); **baten bidez erantzun** (9); **batez erantzun** (63); **batez erantzun nion** (9); **batez erantzun zidan** (9); **batez erantzun zion** (11); **batez erantzun zuen** (10); **bati erantzun** (34); **behar bezala erantzun** (12); **beharrei erantzun** (9); **bera erantzun** (9); **berak erantzun** (51); **berean erantzun** (15); **berehala erantzun** (62); **berehala erantzun zion** (14); **berehalakoan erantzun** (12); **bertan erantzun** (14); **beste erantzun** (19); **beste erantzun bat** (10); **besteak erantzun** (14); **beti erantzun** (12); **bezala erantzun** (46); **bi erantzun** (9); **bidez erantzun** (21); **bidez erantzun zion** (9); **bikain erantzun** (12); **class testua erantzun** (19); **da erantzun** (29); **dagoela erantzun** (19); **dakit zer erantzun** (13); **deiari erantzun** (19); **dela erantzun** (70); **dela erantzun dio** (13); **dela erantzun zion** (14); **dela erantzun zuen** (9); **deus erantzun** (32); **dio erantzun** (17); **direla erantzun** (32); **dit erantzun** (19); **dituela erantzun** (12); **dohatsuak erantzun** (31); **dohatsuak erantzun zion** (25); **don kijotek erantzun** (39); **du erantzun** (38); **duela erantzun** (35); **duela erantzun zion** (10); **duen erantzun** (10); **dut erantzun** (12); **dute erantzun** (11); **dutela erantzun** (10); **duten erantzun** (9); **edo erantzun** (10); **egin eta erantzun** (9); **egindako adierazpenei erantzun** (11); **eginez erantzun** (24); **eginiko adierazpenei erantzun** (9); **eliasek erantzun** (14); **eliseok erantzun** (21); **emakumeak erantzun** (31); **emakumeak erantzun zion** (9); **emandako erantzun** (40)

erantzun ahal (47); **erantzun ahal izan** (9); **erantzun ahal izango** (9); **erantzun ahal izateko** (19); **erantzun argiak** (9); **erantzun aurretik** (25); **erantzun baino** (22); **erantzun baino lehen** (17); **erantzun baitzion** (9); **erantzun bakar** (13); **erantzun bakarra** (33); **erantzun bat** (104); **erantzun bat eman** (9); **erantzun bat emateko** (11); **erantzun baten** (24); **erantzun baten zain** (12); **erantzun bateratua** (33); **erantzun bateratua eman** (13); **erantzun behar** (255); **erantzun behar dio** (15); **erantzun behar izan** (23); **erantzun behar zaio** (9); **erantzun beharko** (84); **erantzun beharko diote** (11); **erantzun beharra** (20); **erantzun beharrean** (31); **erantzun beharreko** (11); **erantzun bera** (41); **erantzun bera eman** (11); **erantzun bila** (11); **erantzun didate** (9); **erantzun die** (106); **erantzun diete** (18); **erantzun digu** (10); **erantzun dio** (329); **erantzun diogu** (9); **erantzun diot** (85); **erantzun diote** (63); **erantzun diozu** (28); **erantzun dit** (88); **erantzun ditu** (13); **erantzun dizu** (12); **erantzun du** (258); **erantzun dut** (16); **erantzun dute** (67); **erantzun egin** (81); **erantzun egin behar** (17); **erantzun egin beharko** (11); **erantzun egingo** (22); **erantzun egiten** (26); **erantzun egoki** (9); **erantzun egokia** (42); **erantzun egokirik** (11); **erantzun eman** (10); **erantzun ere** (48); **erantzun ere egin** (9); **erantzun ere ez** (10); **erantzun eta** (114); **erantzun ez** (64); **erantzun ez zekiela** (13); **erantzun gabe** (99); **erantzun gabeko** (9); **erantzun genion** (20); **erantzun gisa** (68); **erantzun gogorra** (9); **erantzun gutxi** (11); **erantzun guztiak** (15); **erantzun hark** (12); **erantzun hau** (40); **erantzun hori** (44); **erantzun horrek** (11)

erantzun izan (31); **erantzun nahi** (133); **erantzun nahi dio** (12); **erantzun nahi izan** (53); **erantzun nahian** (19); **erantzun nien** (28); **erantzun nik** (10); **erantzun nion** (623); **erantzun nion nik** (29); **erantzun nuen** (115); **erantzun ohi** (19); **erantzun omen** (40); **erantzun omen zion** (22); **erantzun omen zuen** (10); **erantzun on** (12); **erantzun ona** (20); **erantzun ondoren** (13); **erantzun ordez** (19); **erantzun positiboa** (10); **erantzun zabala** (13); **erantzun zehatza** (11); **erantzun zehatzik** (11); **erantzun zidan** (558); **erantzun zidan berak** (25); **erantzun zidaten** (25); **erantzun zien** (441); **erantzun zien atzo** (23); **erantzun zieten** (71); **erantzun zigun** (22); **erantzun ziguten** (11); **erantzun ziola** (19); **erantzun zion** (2948); **erantzun zion aitak** (13); **erantzun zion alcide** (14); **erantzun zion alkimistak** (15); **erantzun zion andresek** (9); **erantzun zion anfitrioiak** (9); **erantzun zion atzo** (35); **erantzun zion berak** (13); **erantzun zion bere** (13); **erantzun zion besteak** (15); **erantzun zion don** (15); **erantzun zion dumbledorek** (16); **erantzun zion esanez** (12); **erantzun zion eta** (9); **erantzun zion ez** (15); **erantzun zion hagridek** (28); **erantzun zion hark** (19); **erantzun zion harry** (9); **erantzun zion harryk** (134); **erantzun zion hermionek** (44); **erantzun zion jaunak** (10); **erantzun zion lupinek** (21); **erantzun zion mcgonagall** (16); **erantzun zion mikel** (25); **erantzun zion mutilak** (26); **erantzun zion nadiak** (14); **erantzun zion neskatxak** (9); **erantzun zion percyk** (9); **erantzun zion riddlek** (10); **erantzun zion ronek** (57); **erantzun zion ruche** (12); **erantzun zion xubanek** (20); **erantzun zionean** (10); **erantzun zioten** (255); **erantzun zituen** (22); **erantzun zuela** (9); **erantzun zuen** (1762); **erantzun zuen andresek** (9); **erantzun zuen aragornek** (10); **erantzun zuen berak** (22); **erantzun zuen besteak** (10); **erantzun zuen don** (12); **erantzun zuen emakumeak** (10); **erantzun zuen ez** (9); **erantzun zuen gandalfek** (13); **erantzun zuen hark** (13); **erantzun zuen kristok** (27); **erantzun zuen lasai** (11); **erantzun zuen martinek** (11); **erantzun zuen mutilak** (13); **erantzun zuen neskak** (19); **erantzun zuen on** (59); **erantzun zuen pepponek** (25); **erantzun zuen peterrek** (12); **erantzun zuen santxok** (13); **erantzun zuen txitxikovek** (14); **erantzun zuenean** (9); **erantzun zuten** (131); **erantzun zuzena** (15

erasoari erantzun (11); **erasoei erantzun** (9); **ere erantzun** (89); **ere erantzun zien** (9); **ere erantzun zion** (14); **erregeak erantzun** (31); **erregeak erantzun zion** (19); **esanez erantzun** (20); **eskaerari erantzun** (17); **esterrek erantzun** (13); **esterrek erantzun zion** (9); **eta baietz erantzun** (16); **eta berak erantzun** (22); **eta erantzun** (223); **eta erantzun egin** (13); **eta erantzun nion** (12); **eta erantzun zidan** (18); **eta erantzun zion** (21); **eta ezetz erantzun** (21); **eta garbi erantzun** (10); **eta hark erantzun** (20); **eta honek erantzun** (11); **eta honela erantzun** (18); **eta jaunak erantzun** (10); **eta nik erantzun** (27); **eta zer erantzun** (9); **euskaraz erantzun** (10); **ez dio erantzun** (10); **ez dit erantzun** (17); **ez du erantzun** (32); **ez duela erantzun** (10); **ez erantzun** (40); **ez nion erantzun** (39); **ez nuen erantzun** (13); **ez zidan erantzun** (41); **ez zien erantzun** (12); **ez zion erantzun** (92); **ez zioten erantzun** (11); **ez zuen erantzun** (124); **ez zuten erantzun** (10); **ezer erantzun** (123); **ezer erantzun gabe** (11); **ezetz erantzun** (144); **ezetz erantzun nion** (15); **ezetz erantzun zion** (23); **ezetz erantzun zuen** (12); **ezezkoa erantzun** (10); **ezezkoarekin erantzun** (11); **ezin erantzun** (13); **frantzisko dohatsuak erantzun** (29); **frantziskok erantzun** (44); **frantziskok erantzun zion** (30); **gabe erantzun** (42); **galdera bati erantzun** (9); **galdera erantzun** (15); **galdera horri erantzun** (13); **galderak erantzun** (13); **galderari erantzun** (50); **galderei erantzun** (59); **galderei erantzun zien** (11); **garbi erantzun** (13); **gisa erantzun** (12); **gizonak erantzun** (19); **gogor erantzun** (17); **guk erantzun** (10); **guztiei erantzun** (16); **haiek erantzun** (79); **haiek erantzun zioten** (35); **haiek erantzun zuten** (9); **hala erantzun** (43); **hala erantzun zion** (13); **halaxe erantzun** (15); **handiz erantzun** (19); **hark erantzun** (143); **hark erantzun zidan** (9); **hark erantzun zien** (15); **hark erantzun zion** (34); **hark erantzun zuen** (11); **haserre erantzun** (16); **hau erantzun** (24); **hauxe erantzun** (40); **hauxe erantzun du** (12); **hauxe erantzun zuen** (12); **herri gisa erantzun** (9);

hobeto erantzun (9); **honakoa erantzun** (11); **honek erantzun** (32); **honela erantzun** (194); **honela erantzun zidan** (9); **honela erantzun zien** (15); **honela erantzun zion** (106); **honela erantzun zuen** (33); **honi erantzun** (12); **hori erantzun** (14); **horiei erantzun** (14); **horrela erantzun** (32); **horrela erantzun zion** (11); **horretan erantzun** (15); **horri erantzun** (56)

inork erantzun (27); **ironiaz erantzun** (9); **irribarrez erantzun** (12); **jakobek erantzun** (16); **jakobek erantzun zion** (9); **jaunak erantzun** (66); **jaunak erantzun zion** (32); **jesusek erantzun** (124); **jesusek erantzun zien** (51); **jesusek erantzun zion** (35); **jobek erantzun** (11); **josek erantzun** (14); **kijotek erantzun** (39); **kritikei erantzun** (15); **labur erantzun** (10); **lasai erantzun** (10); **leonek erantzun** (9); **modu horretan erantzun** (12); **moduan erantzun** (12); **moisesek erantzun** (29); **moisesek erantzun zion** (21); **nagusiak erantzun** (9); **nahi erantzun** (10); **nik erantzun** (70); **nik erantzun nion** (17); **nion erantzun** (43); **nion ezer erantzun** (14); **nire erantzun** (9); **nola erantzun** (55); **nola erantzun behar** (9); **nuela erantzun** (14); **nuela erantzun nion** (12); **nuen erantzun** (18); **ondo erantzun** (35); **ongi erantzun** (25); **oraindik erantzun** (16); **oso erantzun** (11); **pedrok erantzun** (17); **pedrok erantzun zion** (9); **san frantziskok erantzun** (13); **santuak erantzun** (18); **santuak erantzun zion** (13); **santxok erantzun** (69); **segituan erantzun** (10); **testua erantzun** (19); **testua erantzun zion** (19); **tinko erantzun** (9); **zakar erantzun** (11); **zegoela erantzun** (16); **zekien zer erantzun** (9); **zela erantzun** (63); **zela erantzun zion** (20); **zela erantzun zuen** (10); **zen erantzun** (24); **zer erantzun** (191); **zer erantzun behar** (23); **zer erantzun ez** (20); **zera erantzun** (43); **zera erantzun zuen** (15); **zerbait erantzun** (17); **zidan erantzun** (43); **zien erantzun** (13); **zion erantzun** (100); **zion ezer erantzun** (21); **zioten erantzun** (12); **zirela erantzun** (14); **zuela erantzun** (38); **zuela erantzun zion** (14); **zuen berehala erantzun** (11); **zuen erantzun** (151); **zuen ezer erantzun** (16); **zuen inork erantzun** (10); **zuk erantzun** (11); **zutela erantzun** (15); **zuten erantzun** (14); **zuzen erantzun** (10)

bati erantzuteko (19); **beharrei erantzuteko** (39); **bezala erantzuteko** (10); **erantzutea da** (16); **erantzutea erabaki** (11); **erantzutea eta** (9); **erantzuteko asmoz** (10); **erantzuteko astirik** (20); **erantzuteko astirik eman** (11); **erantzuteko aukera** (11); **erantzuteko betarik** (12); **erantzuteko deia** (13); **erantzuteko deia egin** (10); **erantzuteko eskatu** (16); **erantzuteko eta** (12); **erantzuteko gai** (25); **erantzuteko gauza** (9); **erantzuteko modu** (9); **erantzuteko prest** (21); **erasoei erantzuteko** (10); **eskariari erantzuteko** (9); **eta erantzuteko** (14); **ez erantzutea** (24); **ez erantzuteko** (22); **galdera horri erantzuteko** (12); **galderari erantzuteko** (9); **galderei erantzuteari** (12); **galderei erantzuteko** (34); **guztiei erantzuteko** (15); **horiei erantzuteko** (17); **horri erantzutea** (14); **horri erantzuteko** (52); **premiei erantzuteko** (14)

baietz erantzuten (19); **batekin erantzuten** (11); **batez erantzuten** (11); **bati erantzuten** (37); **bati erantzuten dio** (12); **behar bezala erantzuten** (9); **beharrei erantzuten** (9); **beti erantzuten** (9); **bezala erantzuten** (22); **dio erantzuten** (19); **du erantzuten** (29); **erantzuten ari** (28); **erantzuten badu** (9); **erantzuten die** (33); **erantzuten dien** (13); **erantzuten diete** (13); **erantzuten dio** (156); **erantzuten diola** (23); **erantzuten dion** (24); **erantzuten diot** (27); **erantzuten diote** (31); **erantzuten dit** (12); **erantzuten du** (118); **erantzuten duen** (17); **erantzuten dut** (12); **erantzuten dute** (23); **erantzuten eta** (15); **erantzuten ez** (60); **erantzuten hasi** (20); **erantzuten jakin** (13); **erantzuten nien** (14); **erantzuten nion** (30); **erantzuten nuen** (10); **erantzuten saiatu** (14); **erantzuten saiatzen** (14); **erantzuten zidan** (23); **erantzuten zien** (49); **erantzuten zieten** (15); **erantzuten ziola** (9); **erantzuten zion** (135); **erantzuten zioten** (15); **erantzuten zuen** (89); **erantzuten zuten** (17); **eta erantzuten** (27); **ez dio erantzuten** (19); **ez du erantzuten** (29); **ez zion erantzuten** (9); **ez zuen erantzuten** (18); **ezer erantzuten** (11); **galderari erantzuten** (11); **galderei erantzuten** (26); **honela erantzuten** (23); **horri erantzuten** (25); **inork erantzuten** (14); **nik erantzuten** (12); **nola erantzuten** (30); **nola erantzuten duen** (10); **ondo erantzuten** (10); **ongi erantzuten** (11); **zer erantzuten** (16); **zera erantzuten** (14); **zion erantzuten** (9); **zuen erantzuten** (21)

---

erantzun[2] **1** *iz* erantzutean esaten edo egiten dena. ik **ihardespen**. *(ikus* erantzun *aditzaren sarrerako konbinatorian* erantzun *izenaren agerraldi maizkoenak).*

Leihoa ixtea izan da **erantzuna**. Koldo Izagirre

Betikoa izan da: beti galdezka, **erantzunak** ez entzuten. Herria

Galdera honi **erantzuna** emateak, behar bezala landu nahi izanez gero, beste liburu bat eskatuko liguke. Galderak etenda utzi eta **erantzuna** geroratzen zuen, bezeroei begietara zuzenean begiratuz. Imanol Unzurrunzaga

Hori ez zen baieztapena, galdera baizik, eta galderak **erantzuna** du zor. Aingeru Epaltza

Beharbada **erantzunen** bat aurkituko dugu bertan. Galdera ona zen hala ere, baina **erantzuna** hobea izan zen. Oskar Arana

Zoriontasuna inork egin ez dituen galderei emandako **erantzunen** erreinua baldin bada, tristura inork erantzun ez dituen galderen probintzia ahantzi bat da. Iñaki Segurola

Ate zartakoak; adeitasunez egindako eskariei isekaz eta mikaztasunez emandako **erantzunak**. Oskar Arana

-Berandu? -galdetu dut, **erantzuna** nahi ez banuen ere-. Txillardegi

Erantzuna aditu orduko nire baporea mugitzen hasi zen Marearen M haserretuak eraginda. Bernardo Atxaga

Erantzuna ukan gabe, aulki bat hartu eta haren ondoan jarri zen, lana utzi eta begietara so egitera behartzen zuela. Elena Touyarou

Aurkariaren bertsoa osorik entzun eta gero oso segundo gutxitan hari **erantzuna** prestatu eta bota. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Baina, **erantzuna** gorabehera, susmatzen nuen egia. Bernardo Atxaga

Azken finean hori ere *feedback,* **erantzuna** da. Iñaki Zabaleta

Erantzuna argudiatzea ez da zaila. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez nuen **erantzuna** ezagutzen, ezin jakin nezakeen ezta ere zein helburu zuten edo nork (edo nortzuk) mugitzen zituen hariak isil-gordeka. Karlos Linazasoro

Beharbada **erantzuna** bazekielako; Mallona ez zen inori kalterik egiteko prest. Edorta Jimenez

Eta berak, nire **erantzuna** amaitzen utzi gabe ia: [...]. Ramon Saizarbitoria

Erantzuna, kasu guztietan, ezezko borobila da. Bernardo Atxaga

Erantzuna ezezkoa izatea, bularraldean domina bat zintzilikatzearen parekoa zen guretako. Aingeru Epaltza

Erantzuna baiezkoa izan zen. Arantxa Iturbe

Faxismoak gure ekintzei ematen dien **erantzuna** basatia eta indiskriminatua izaten da. Bernardo Atxaga

Erantzuna ez da samurra, eta litekeena da irakurleak datu gehiago behar izatea. Bernardo Atxaga

Frantziskoren **erantzuna**, idazten ari zen Erregela onartu nahi ez zuten ministroei. Berria - Kirola

Beharbada **erantzuna** aipu hartantxe zegoen. Iñaki Iñurrieta

Galderak ez zuen **erantzunaren** premiarik. Edorta Jimenez

Gutunak bat-bateko amaiera zuen, laster arte, zure **erantzunaren** zain, agur. Joxemari Iturralde

Beren **erantzunen** beha gaude. Herria

Hau oso gauza serioa da, eta nire zorion etorkizunaren parte handi bat, eta orobat zurea ere, zeure **erantzunaren** baitan dago. Antton Olano

-Mila esker -irribarrerik adeitsuenaz lagundu zuen **erantzuna**. Josu Landa

Hara joan nintzen pozez beterik jasotako **erantzunagatik**. Anjel Lertxundi

Gizona, **erantzunagatik**, eta **erantzun** hark emakume gatibu baten ahotan erakusten zuen ausardiagatik, harri eta lur gelditu bazen ere, ez zen asaldatu. Felipe Juaristi

Bere **erantzunak** zentzu bikoitza izan zuen. Bernardo Atxaga

Hau ez da 15 eta 20 urtean lanean jardun duten profesionalek merezi duten **erantzuna**. Berria - Harian

Ikusten duzunez galdatzen dizudan **erantzunak** ez du perpaus luze ederren beharrik. Jon Muñoz

Erantzuna lerro bat geroago heldu zen: [...]. Aingeru Epaltza

Ordezkariaren **erantzuna** irrigarria iruditu zitzaion, ez hainbeste auziaren mamiari buruzkoan, hori guztiz eztabaidagarria baitzen, **erantzunak** berarekin zekarren hitz-jokuarengatik baizik. Jon Alonso

Bere ikerketa matematiko hura egiten jarraitu beharra zeukan, hark emango baitzizkion bere galderen **erantzunak**. Jon Muñoz

Vernek arazo teknikoei aurre egin eta **erantzuna** ematen die, garai hartako ezaguerez baliaturik. Karlos Zabala

Ez diot puntu hori argitzeko, zeina baitut orain eta sekulako gure artean adostua izatea igurikitzen, erantzun zure **erantzunari**. Jon Muñoz

-Ezin dugu gurekin eraman -Agustinaren **erantzuna** -. Aitor Arana

Galdera horren **erantzun** gisa, bat-batean ireki zen tranpola, eta zilar-itxurako eskailera bat jaitsi zen Harryren oinetaraino. Iñaki Mendiguren

Aita errukitsuari bere semeen alde otoitz egin zion, eta **erantzun** hau izan zuen Jaunarengandik: [...]. Askoren artean

Orduan, Esterrek **erantzun** hau bidali zion Mardokeori: [...]. Jose Antonio Mujika

Jainkoagandik **erantzun** hau jaso ondoren, San Frantzisko berehalaxe anai Bernardorengana itzuli zen presaka. Askoren artean

Erantzun hau ematen zien Frantziskoren bihotz zabala eta ohitura garbiak goraipatzen zizkioten auzokideei: [...]. Askoren artean

Interesgarria gerta dakioke erakundeak zein **erantzun** eman nahi dion jakitea. Rafa Egiguren

29 aldiz jaso zuten **erantzun** hori. Berria - Mundua

Harrezkero, **erantzun** hori bera eman ohi zien gai honetan aholku bila zetozkion anaiei. Askoren artean

Erantzun eta erabaki haietan, azken batean, jarduera politikoa eta militarra ulertzeko bi modu desberdin ari ziren nabarmentzen. Rafa Egiguren

Bulegariak **erantzun** bera ematen zion goizero doktoreari, eta goizetik goizera tristeago eta adore gabeago itzultzen zen hura etxera. Josu Zabaleta

Ben-Hadad, beste erregeekin batera, oihal-etxoletan edaten ari zen **erantzun** hau hartu zuenean. Elizen arteko biblia

Ez zuen inola ere **erantzun** hori espero. Iñaki Mendiguren

Ai, **erantzun** horrek egin zidan mina! Daniel Landart

Maimonek kapitulu batean formulazio enigmatiko bat eta handik urruneko beste batean **erantzuna** idatziko balu bezala gertatzen da, **erantzun** horrekin han urrunean planteaturiko enigma dezifratzen duela esan gabe. Xabier Kintana

Erantzun honekin berebiziko poza hartu zuen San Frantziskok eta eskerrak ematen zizkion Jainkoari. Askoren artean

Aitonaren bidez **erantzun** asko iritsi zaizkidala esan dizut lehen. Pako Aristi

"Burgosera joan beharra izango diat", eta Amianok irribarre egin zuen **erantzun** gisa. Ramon Saizarbitoria

Erantzun bakarra bizkarra uzkurtze bat izan baitzen, eta iruzkin axolagabe bat. Jon Alonso

Erantzun modura, eskribauak pergamu kiribildu bat eskaini zion. Edorta Jimenez

Erantzun gisa galarrotsa besterik ez du jasoko, zakukada katurekin batera. Patxi Ezkiaga

Erantzun haren mutur bietatik tiratuz. Edorta Jimenez

McGonagall andereñoak zintz egin zuen **erantzun** gisa. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zenbat galdera, eta zein **erantzun** gutxi. Karlos Linazasoro

Galdera ugari ekartzen ditu, denentzat **erantzun** argia eta segurua aurkitzen ez badu ere. Imanol Unzurrunzaga

Galderak errebisatuko dituzu berriro, **erantzun** posibleak asmatzen. Joseba Sarrionandia

Eskolak, ondorioz, ezin ditu **erantzun** itxiak eman. Berria - Euskal Herria

Erantzun laburrak, umorez beteak. Berria - Kultura

Telefonozainak **erantzun** biribila eman zion: Manausen ez zegoen Elgar Grosrouvrerik! gogora dezagun mehatxu terroristak guztioi eragiten digula eta Europaren **erantzun** bateratua exijitzen duela. Jon Muñoz

Ezertxo ere esango ez zuela zirudienean, **erantzun** sor, berankor, izugarri urruna iritsi zen: hilobi batek horrelaxe erantzungo lieke dei sarriei. Jose Morales

Shevirev doktoreak berehala bidali zuen **erantzun** formala, Egor Timofeievitxen kexa aintzat hartu zutela esanez. Jose Morales

Txerto honek **erantzun** immunologikoa bilatzen du. Berria - Gaiak

Niri ere ez dit **erantzun** onik eman azkeneko hamar egunetan. Bernardo Atxaga

Xabi Payak **erantzun** bikain hau eman zion Eneko Abasolo Abarkas-i, azken horrek kotxearen inguruan egin zion aipamena dela-eta: [...]. Berria - Kultura

Massachusettsek "Dixiek" baino erronka latzagoa aurkeztu zien europar kolonizatzaileei eta **erantzun** hobea eragin zuen. Iñaki Mendiguren

65.750 akzio saldu ziren, eta zaleek eta bazkideek **erantzun** paregabea eman zuten. Berria - Ekonomia

Holako sendimenduetan denari zer erran? Elkartasun ixila **erantzun** hoberena. Herria

Erakargarria gertatzen zitzaidan "ez didazu sinetsiko" esan eta neure buruari joaten uztea, baina, aldi berean, ikaratu egiten ninduen **erantzun** gaizto bat jasotzeko aukerak. Ramon Saizarbitoria

Eta **erantzun** zintzoa zen. Jon Muñoz

Galde horri **erantzun** positiboa eman ezkero, beste egoera batean geundeke berehala. Berria - Harian

Zein zen **erantzun** egokia? Alberto Ladron Arana

Behin sartu ondoren ea zer ikusi nahiko nukeen galdetu zidanean, etsi-etsian, neure burua gaizki ez uzteko **erantzun** aproposaren bila jarri nintzen. Ramon Saizarbitoria

Galdera jakin baten **erantzun** zehatz baten bila. Edorta Jimenez

Harryk eta Ronek zertan ari zen galdetzen ziotenean ere, ez zuten **erantzun** garbirik jasotzen. Iñaki Mendiguren

Batzuetan pentsatzen diat hildakoek bakarrik ematen dituztela **erantzun** garbi eta osoak. Xabier Olarra

Oso poztu zen Santxo hain **erantzun** pozgarria hartu zuenean. Patxi Ezkiaga

"Uste dut maite zaitudala" bezalako zerbait esan banio, gerta zekidakeen okerrena serio ez hartzea izan zitekeela; asko jota ere, **erantzun** umoretsu bat jaso beharra. Ramon Saizarbitoria

Alberdik **erantzun** erraza bezain sinplea eman du: «Arrauna kirol aerobikoa da neurri handi batean, horregatik, gorputzaren alderdi aerobikoa landu behar da; txirrindularitzan, atletismoan eta igeriketan bezala». Berria - Kirola

Berriz ere jarri zizkion hatzak dardarka neskaren **erantzun** irribarretsuak. Koro Navarro

Beste zenbaitek, ordea, entzungor egiten zieten hitz hauei eta **erantzun** zorrotzak emanez gezurtatzen zituzten haren arrazoiak. Askoren artean

Beste eragozpena ere badauka, alegia, entzule babesgabea **erantzun** burugabeetara desbideratzea eta halako irudi barregarria ematea: batek akerra jezten duela, besteak azpian baheari eusten dion bitartean. Ibon Uribarri

Anai Rufinok, ordea, **erantzun** zakarra eman zion. Askoren artean

Horretan pentsatzen nuenean, askotan ezin izaten nuen **erantzunik** eman, edota **erantzun** zentzugabe eta hala-holakoren bat ematen nuen soilik, eta, orduan, irribarre egin eta buruaz baiezkoa egiten zuen bi edo hiru aldiz. Irene Aldasoro

Gaizki interpretatutako estimulu bati **erantzun** automatiko okerrak ematen zizkionagu. Anjel Lertxundi

Nagusitu den eredu sexualaren arabera, koitoan emakumeak orgasmoa izatea da haren **erantzun** sexual logikoa, normala eta naturala. Luis Elberdin

Bide-blokeo islamiko handi hori erronka bat zen, eta **erantzun** kementsua eragin zuen blokeaturiko bi kristau-gizarteetako komunitate aitzindarien partetik. Iñaki Mendiguren

Erronka batek **erantzun** arrakastatsua sortarazi eta honek bere aldetik beste erronka bat sortarazten duenean gertatzen da hazkundea. Iñaki Mendiguren

Ez zen, ez, oso **erantzun** landua, onartu behar izan zuenez. Jon Muñoz

Bere hamar urte haiekin, maldizioak esaten zituen suma-ahala, zigarroak osten zizkigun, **erantzun** lotsagabeak ematen. Bernardo Atxaga

Halako **erantzun** izugarriarekin ez nintzen beste ezer galdetzera ausartu. Hasier Etxeberria

Halakoa bakarrik ausartuko baita noizbehinka **erantzun** jakinik ez duten galderak egitera. Joxerra Garzia

Datorren larunbatean Bilbon manifestazioa egitera deitu du, «Madrilen erasoari **erantzun** sendoa» emateko. Berria - Euskal Herria

Aipaturiko ziurtasun horrek ondorio garbiak ditu, esaterako, gure artean bizi omen dugun "gatazka" horren aurrean (exijitzen zaigun) zentzu bateko zein besteko **erantzun** sendo-apurtezinak ematerakoan. Iban Zaldua

Ea **erantzun** okerren batean harrapatzen zuten. Elizen arteko biblia

Nola kontsolatu nahi nauzue zeuen **erantzun** faltsu eta hutsal horiekin? Elizen arteko biblia

Anai Maseo, bihotz kartsuz emandako **erantzun** hain apalarekin, guztiz harrituta geratu zen. Askoren artean

Halako **erantzun** izugarriarekin ez nintzen beste ezer galdetzera ausartu. Hasier Etxeberria

Komunikazio kontuetan ez dago **erantzun** erabatekorik, eta baliteke ikasleren bati irakasleak aurrez prestatu duena baino irtenbide egokiagoa bururatzea komunikazio egoera jakin baten aurrean. Joxerra Garzia

Arrazoizko **erantzun** bakar hori aurkitzen nuen nire gogoan. Bernardo Atxaga

Beraz, hasieratik, hautespen naturala dudan ipini edo baztertzen badugu eboluzioaren eragiletzat, ez dugu, inola, ordezko **erantzun** erlijiosorik zientziaren alorrean aurkezten. Jenaro Garate

"Burua galtzeko" ahalmena, emoziozko **erantzun** suharra sentitzeko ahalmena, gutxitua bide du beste arlo batzuetan ere. Xabier Olarra

Ez nekien zer erantsi hain **erantzun** ezustekoari. Anjel Lertxundi

Egiazkoa eta aldi berean bitxia zen **erantzun** bat eman nion: [...]. Bernardo Atxaga

Ivan Ogareffek ezin izan zuen goiko alde hori artean eskuratu, oldar bizian ahaleginduagatik, defendatzaileek eutsi egiten baitzioten, erasoei **erantzun** bortitz bipila emanez. Karlos Zabala

Erantzun militarra ezinezkoa izan den lekuan, edota saiatu eta huts egin duen lekuan, herri konkistatu batzuek beren erlijioa biziki landuz komunitate gisa identitateari eutsiz erreakzionatu dute. Iñaki Mendiguren

Haatik, ez zen horri **erantzun** bila hasteko tenorea. Edorta Jimenez

Bi **erantzun** emozionalak elkarrekiko kontraesankorrak dira. Iñaki Mendiguren

Halako **erantzunek** bereziki gizakiaren mugimendu-ereduak jartzen bide dituzte abian. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orain gure xedea honela erronka jasan duten gizarteetan sortu den erreakzio edo **erantzun**-motak aztertu eta sailkatzea da. Iñaki Mendiguren

Zer egin nezakeen nik **erantzun**-txandarik ere ez banuen? Karlos Linazasoro

Erantzun txandan goizean baino luzeago aritu zen Zapatero gai hauen inguruan. Berria - Harian

Han ez zen, ordea, inolako ahotsik izan, ez eta **erantzun**-arrastorik ere. Berria - Kultura

Gero, batzuk besteen aurrez aurre jarrita, elizako ateak ireki zituzten eta, anai Jordan sarraraziz, bozkarioz eta alaitasunez hartu zuten, "Hic est fratrum amator" **erantzun**-leloa kantatuz. Askoren artean

Honako antifona hau liturgi ordu guztietan esaten da, antifona, irakurgai labur, gorazarre, **erantzun**-bertso eta otoitzaren ordez, bai maitinetan eta bai gainerako orduetan. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantziskoren konbertsio-bidean loturik ageri zaizkigu Jainkoaren ekimena eta giza **erantzuna**. Askoren artean

Martiritzaren sutan bere burua Jaunari opari bizi eskaini nahi zion, horrela gugatik gurutzean hildako Kristori truke-**erantzuna** emateko, eta besteei jainko-maitasunera eragiteko. Askoren artean

Eta sasi-**erantzun** honen bitartez eman nion segida jokoari. Joxan Elosegi

Hizkuntz analisian, formen arteko bereizkuntza eragiketen bitartez definitzen dugu, esanahi-**erantzunen** bereizkuntzen arabera. Itziar Laka

Konduktismoaren arabera, informazioa berreskuratzeko mekanismoa estimulu-**erantzunen** arteko asoziazio funtziotik abiatzen da. Berria - Gaiak

Kanpainaren joaldia eta horrek sor dezakeen mezu-**erantzuna** erabat sintetizaturik daude. Iñaki Zabaleta

Baliteke kristau-**erantzuna** zera izatea, hots, desintegratzen ari den zibilizazioko gadaratar txerriak buruz aurrera beherantz doazenean, Elizaren erantzukizuna atzealdean egotea izan litekeela, ahalik eta begirik gehienek atzerantz maldan gora begira dezaten. Iñaki Mendiguren

5 (elkarketa kopulatiboetan)

Elgarrizketan arizan ondoan, elgar hobeki ezagutzeko, gure bertsulari gaiak galde **erantzunetan** bertsutan arizan dira Andonirekin. Herria

Galde **erantzunen** txanda zabaldu dute. Edorta Jimenez

Galdera-**erantzun** horiek entzun eta Mikel Strogoff ezusteak eta errukiak hartu zuten batera. Karlos Zabala

Une batez urteroko galdera-**erantzun**-zalantza segidaren kalbarioari ekin behar diogula dirudi, baina aurten ez da halakorik gertatuko. Iban Zaldua

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Bi barne-**erantzun** modu proposatu ohi dira. Koro Navarro

---

erantzunarazi, entzunaraz, entzunarazten du *ad* erantzutera behartu.

-Jainkoak badaki, ene aita, aldi guztietan zuk agindu bezala erantzuteko erabakia izan dudala bihotzean; baina Jainkoak, berak nahi duen moduan **erantzunarazten** dit, eta ez nik nahi dudan eran. Askoren artean

Kontu handia hartzen baitzuten beren jainkoak oso kasu jakinetan bakarrik itauntzeko, eta honelakoetan ere komeni zitzaiena **erantzunarazteko**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

erantzunbehar *iz* erantzukizuna.

Bere gain hartzen zuen atentatuaren **erantzunbehar** osoa. Matías Múgica

Albo-estatu unibertsalaren zesarismoa **erantzunbeharrik** gabeko monarkiaren forman, ez tribu-legean baizik eta ospe militarrean oinarritua, eta sorkuntza orijinalerako gaitasun barbaroa, berriz, poesia heroikoan azaltzen da. Iñaki Mendiguren

Erantzunbehar, [...]: zama libragarria, Jainkoaren, patuaren, Halabeharraren edo Zoriaren bizkarrera aise bota daitekeena. Xabier Olarra

---

erantzunezin *izond* ezin erantzunezkoa.

Hantxe, froga **erantzunezina** eta eztabaidaezina! Joan Mari Irigoien

Hark bai zeukala logika **erantzunezina**. Fernando Morillo

Distiko bat bezalakoak dira, erranairu **erantzunezina** bezalakoak. Jon Alonso

---

erantzunezko *izlag* erantzunari dagokona.

Zilegi bedi, beraz, **erantzunezko** indarraren erabilera, herri honi bere eskubideak zaplatzen zaizkion artean, Patri. Hasier Etxeberria

---

erantzungabe *izond* erantzunik ez duena.

Ume autista baten gurasoak konturatzen direnean umea berengandik urruntzen ari dela edo bakarti, irisgaitz, **erantzungabe** bihurtzen ari dela, beren buruari errua emateko tentazioa izan dezakete oraindik ere. Xabier Olarra

Uzten gaitu gure galdera **erantzungabeekin**, ardurenean latza da, egartsua, oinazea pairatzen du, usu bapatekoa da eta ordu deno gelditua... Herria

---

erantzungailu 1 *iz* erantzuteko gailua.

-Erantzungailua ere jarri beharko diagu. Harkaitz Cano

Erantzungailuaren argia piztuta dagoela ohartu, eta botoia sakatu du Margak. Iban Zaldua

Agian martxan dago **erantzungailua**, dena den. Lourdes Oñederra

Ohean etzan baino lehen, **erantzungailuak** zer zioen entzutera joan zen. Joxemari Iturralde

Bi mezu zituen **erantzungailuan**. Harkaitz Cano

Harik eta beste egun batean guztiz aztoratu ninduen arte, **erantzungailuan** haren hamar mezu jaso nituenean. Joan Mari Irigoien

Telefonoz deitu ohi zidan tarteka, desorduetan askotan, onez onean jeneralean baina amenazoekin ere bai tarteka, **erantzungailuan** mezu izugarriak utziz. Joxean Agirre

Erantzungailuan Aneren deia: [...]. Unai Iturriaga

Deitu diodan bi aldietan **erantzungailua** atera zait eta ni, halabeharrez, harria baino isilago geratu naiz. Patxi Zubizarreta

Gaur Teresari deitu, eta berriro ere haren **erantzungailua** atera zaidalako. Patxi Zubizarreta

Erantzungailu batek ihardetsi zion. Migel Angel Mintegi

Erantzungailu baten jario mekanikoa entzungo zuen. Iban Zaldua

Erantzungailu bateko mezua agertu da eta Rakelek Teresa izeneko baten etxera deitu duela jakin dut. Patxi Zubizarreta

Ahalik eta hitz zehatzenez baliatuz **erantzungailuari** eman nion neure egoeraren eta kokalekuaren berri. Aingeru Epaltza

-Hemen, Europan bezala, izango da zure **erantzungailuko** mezuak etxetik kanpora entzuteko aparailurik, ezta Popo? Patxi Zubizarreta

Baina itxuraz, Dionisosek amatatua zuen **erantzungailua** . Unai Iturriaga

Zutitu eta, burlati, nire belarrian ipini zuen **erantzungailua** . Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beste edozein tokitan ez bezala, hiri honetan ezinezkoa da **erantzungailu** automatikorik gabe etsitzea. Harkaitz Cano

Konpainia telefonikoaren **erantzungailu** estandarrak ongi etorri egin zidan lineaz bertzaldetik. Aingeru Epaltza

Uste dut, azkenean, halabeharrez ohituko naizela **erantzungailu** malapartatu horrekin berba egiten. Patxi Zubizarreta

Plastikozko **erantzungailu** berriaren ondoan, hil zorian zen bere senarraren argazkia begiratu zuen, isilik. Ramuntxo Etxeberri

3 (hitz elkartuetan)

Sartu zenean telefono **erantzungailua** keinuka ari zitzaiola konturatu zen, bere argi gorrixka etengabe piztu-itzalduz. Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erantzungailu automatikoan (3); **erantzungailua atera** (3); **erantzungailuan mezu** (3); **erantzungailuan mezua** (3); **erantzungailuko mezuak** (5); **zuen erantzungailua** (3)

---

erantzungaitz *izond* erantzuten zaila dena, ia erantzunezina.

Ea Filosofia transzendentalean arrazoimenari aurkeztutako objektuari dagokion galdekizunik bai ote den arrazoimen horren bitartez **erantzungaitza** denik. Ibon Uribarri

---

erantzungarri *izond* erantzun daitekeena, erantzuteko modukoa.

Horregatik, arimaren irakaspen transzendentalaren galdekizun guztiak **erantzungarriak** . Ibon Uribarri

Arrazoimen hutsaren antinomia landu dugunean, zera esan dugu: arrazoimen hutsak egiten dituen galdekizun guztiek absolutuki **erantzungarriak** izan behar dutela. Ibon Uribarri

Galdekizun bakoitzak dakigunetik abiatuta absolutuki **erantzungarria** izan behar duela. Ibon Uribarri

---

erantzunka *adlag* erantzunak emanez.

Eta bere mandoari eraginez, ez zen gehiago galde- **erantzunka** gelditu. Patxi Ezkiaga

---

erantzunkidetasun *iz* erantzunkide izateko nolakotasuna.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek arau horiek ezarri, beren gain hartu eta ebaluatzeko prozesuan parte hartzeko bideak eskaini behar dira, ikasle horien esku-hartzea eta **erantzunkidetasuna** bultzatzeko. Berria - Euskal Herria

---

erantzunkizun ik **erantzukizun**.

---

erantzuntxo *iz adkor* erantzuna.

-Nire galderak nomás entzun, eta bururatzen zaizkizun **erantzuntxoak** esan behar dizkidazu. Patxi Zubizarreta

Erantzuntxo hau zeure buruan... /... gorde zazu gerorako. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

erantzute **1** *iz* galdera, oihu edo keinu bat egiten duenari, bere galdera, oihu edo keinuari dagozkion hitzak edo egiteak harenganatzea.

Harryrekin ez zen sekula aski **erantzute** hutsa. Oskar Arana

2 ***erantzute egin*** erantzuki egin.

Xederik zailena, edo alaiena, huraxe izaten da beti nik hartzen dudana; eta ez diot neure buruari egitate on baten **erantzute egiten** , baldin trebatzen banau edo libertitzen. Jon Muñoz

3 ***erantzutea egin*** erantzuki egin.

Soilik horiek ziren nire esku; eta gogoz bertzerako sentimendu baten **erantzutea eginen** bazenit ere, beldurrik gabe erranen dut halaber Volanges andereñoa zure alabak sorrarazi didana halako gisakoa dela, non higuina sor baitiezazuke, baina ez diezazuke laido egin. Jon Muñoz

---

erantzuteke *adlag* erantzun gabe.

«Zuen galderak ez dira politikoki zuzenak», aipatu zuten Araiako arduradunek, eta galderak **erantzuteke** utzi zituen. Berria - Ekonomia

Horiek dira, beraz, planteamendu honetan **erantzuteke** geratzen diren galderak. Askoren artean

Filosofiaren ikuspegitik, ordea, galdera asko dago oraindik **erantzuteke** . Askoren artean

Nik uste dut buruan galdera asko **erantzuteke** nituela garai hartan. Berria - Euskal Herria

Alde egin dik, **erantzuteke** . Juan Garzia

Eta alferrikako arrazoibide hura guztia ahuntzainei esatea bururatu zitzaion; hauek, hitzik **erantzuteke** , zoraturik, entzun eta entzun zintzilik egon ziren. Patxi Ezkiaga

Neskatoak aulkian eserita soraio begiratzen baitzieten, maistren galderei **erantzuteke** , haien adierazpenei kasu handirik egiteke. Felipe Juaristi

-Bai, ez dago familia elkartuak baino gauza hoberik -onartu zuen Amaiak, egiaz pentsatzen zuena esatea saihestuz eta, aldi berean, zuzenean **erantzuteke** . Aitor Arana

eranzketa *iz* eranztea.

Eta maniobraburu jaunak esan zuen... **eranzketan** jostatuko gara. Fernando Rey

eranzte *iz* soinekoez eta kidekoez mintzatuz, soinetik kentzea.

Marina gaixoari ahaztu egin zitzaion **eranztea** astearte gauean etxera joan zenean. Oskar Arana

Stanek **eranzteari** ekin eta arropa bere oinetan pilatu zuen. Lopez de Arana

Biluzte ariketa hori ez da ordea estalirik dagoen zerbait **eranzte** hutsa: nolabait ere eraiki egin behar da nortasun bat, nork bere burua harturik buztintzat, berez itxuragabea dena landuaz izate horri forma bat emateko, muga eta irudi jakinak izango dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkenean arratseko **eranzte** zeremonia izaten zen; ohera joan eta zapatak eta galtzak kendu behar nituela eta logelan askatzen nituen nire usainak, eta nire anaiak oihu egiten zuen: nazka ematen duk. Pello Lizarralde

erasan, erasan, erasaten **1** dio *ad* gorputzean edo, ondorio okerra eragin. (pertsonengan)

Dementorrek beste batzuei baino gehiago **erasaten** dizute zuri, zure iraganean gauza ikaragarriak baitaude, besteek ez dituztenak. Iñaki Mendiguren

Esaten al dute testuek ea eguzkiak **erasan** zion Talesi? Jon Muñoz

Martin kamainaren ertzean jesartzen zitzaidan, izerdiak sikatzera, sukarrak **erasan** baininduen, eta gero halako edabe bat ematen zidan ahora, tartetxo baten ostean beti-beti loa eragiten zidana. Edorta Jimenez

Hotzikarak **erasaten** dit norbaiti 'nire emaztea da' entzuten diodanean. Harkaitz Cano

Udaberria, hirian, promesa bat da: mendian zerbait gertatzen ari dela adierazten du, eta aldaketa horrek guri zelanbait **erasan** diezagukeela. Pako Aristi

Hego haizeak burutik arin dabilenari **erasaten** diola esan ohi dugu. Pello Zabala

Zalantzak **erasan** zidan: garbi ote nituen? Aingeru Epaltza

Bihotzaren pilpirak bizkorturik, artean edateko zuen baso ardoaren eraginak **erasan** zion. Patxi Zubizarreta

Ez zion batere **erasan** gertatutakoak: betiko Stephen zen, artean ere. Xabier Olarra

Nire lizunkeriak ez dio senarrari ezertan **erasaten**; nire hutsegiteak neureak dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nirea zerbitzu mota bat baizik ez duk -zuritzen zuen bere burua, hautatutako ogibidearen etikotasun zalantzagarriaz **erasaten** genionean-. Aingeru Epaltza

Ada ni baino **erasanago** zegoen, ordea. Anjel Lertxundi

Ohartua nintzen nekeak **erasanda** zebilela aspaldiko egunetan. Anjel Lertxundi

Ikusia naiz Kristina negarrez, alkoholak **erasanda**. Aingeru Epaltza

ACABEren arabera, milaka dira elikadura desorekak **erasandako** gaixoak EAEn. Berria - Euskal Herria

Andre zahar apetatsu hark, haurtzaroko oroitzapen izugarriek **erasana**, lasaitu eta irri egiten zuen hura ikustean. Monika Etxebarria

Umeek horrelako gauzak ikusten dituztenean... horrek **erasan** egiten du. Irene Aldasoro

2004an, esaterako, tuberkulosiak 9 milioi lagun **erasan** zituen denera, eta 2 milioi hil egin ziren. Berria - Gaiak

2 (bestelakoetan)

Portugal, Ukraina edo Andorraren independentziak ez dio **erasaten** munduari, baina Euskal Herriarenak bai, mundu oso-osoari **erasaten** dio. Iñaki Segurola

Noizbait **erasan** al dio norbanako baten heriotzak multzo osoari? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Alabaina, zalantzaren batek edo bestek **erasan** zion bere erabakimenari. Patxi Zubizarreta

Neskaren ileak ere **erasanda** zirudien; urkiletatik askaturik, ile-adats bakan batzuk nora gabe eta zimel zebilzkion lepoaldean. Mirentxu Larrañaga

Gorreriak ez zion sekula **erasan** haren hitz egiteko gaitasunari. Jon Muñoz

Azken joera hori izan da gaurko pentsamenduari sakoneraino **erasan** diona eta gure garaian hobekien onartu dena. Xabier Olarra

3 (medikuntzan)

Medikuaren esanetan, **erasanda** zuen burmuina Big Joek, eta ez zen ezertarako gauza izango, bizirik irauten bazuen ere. Mirentxu Larrañaga

Han, gigantismo tematiz **erasandako** gastralgiko bat diagnostikatu nuen, trakeako elongazioak eta kapelako xingolaren erreumatismo deformatzaileak joa. Xabier Olarra

Gregen tumorrak lehenbizi guruin pituitarioari **erasan** zion; horregatik loditu zen eta erori zitzaion ilea. Xabier Olarra

Ezkerreko hemisferioko lobulu okzipitalean **erasan** zion apoplexiaren ondorioz, grisaren gamako koloreetan ikusten hasi zen beraren ikus-eremuko eskuinaldean zegoen guztia. Xabier Olarra

Lausotasun horrek, bai ikusmenari, bai gnosiari **erasaten** zion. Xabier Olarra

4 (du ad)

Begiak itxi orduko, ondoez ezagun batek **erasan** du. Itziar Otegi

5 (izen gisa)

Udakoa zirudien zaparrada eta trumoien **erasana** entzuten zen kanpoan. Harkaitz Cano

Ingurugiroa bera, bioaniztasun eta ingurumen zabal hedatuarena, alor bakoitzeko kontseiluekiko harremanak, kutsaduraren ondorio negargarrien **erasana**. Pello Zabala

Horixe besterik ez da poesia: denboraren **erasanari**, hitz egiteko eta gauzak definitzeko modaren eraginari aurre egingo dion tresna bat aurkitzea. Isiltasunean eroso sentitzen diren harremanek gatazka irabazi diote denboraren **erasanari**. Pako Aristi

Inor ausartzen bazen igandean belarretan, hurrengo euri- **erasana** bere erruzkotzat joko zuen. Pello Zabala

Normaletik dabilen abuztuak, esan duguna: euri asko ez, eta formal samar egiten duena ekaitz **erasan** oparo eta labur horiena. Pello Zabala

Izeta III.ak hirugarren txandari ekin aitzin, izugarrizko kazkabarra **erasana** izan baitzen. Berria - Kirola

erasanaldi *iz* erasaten den aldia.

Norbaitek, bere neskalagunarekin haserretu eta etxetik ihes egin duen neskaren disko bilduma osoa haserre **erasanaldi** batean leihotik jaurti izan balu bezala da. Harkaitz Cano

erasanerraz *iz* erraz erasana dena.

Adin horretan oso **erasanerraza** zara. Xabier Olarra

erasangaitz *izond* nekez erasaten zaiona.

Begira, Aspergerren sindromea dut, eta horrek jende gehiena baino **erasangaitzago** egiten nau maite izan ohi diren pertsonen galeraren aurrean. Xabier Olarra

erasangarri *izond* erasana izan daitekeena, erasana izateko modukoa.

Denbora guztian daukat arrisku mehatxagarri baten sentipen **erasangarri** hori, zoritxarren bat ote datorren edo heriotza hurbil ote den irudipen hori, inondik ere odolean eta haragian ernetzen ari den gaitz oraindik ezezagun baten hasiera den susmo gaizto hori. Josu Zabaleta

---

erasia *(orobat **erasi**)* **1** *iz* berriketa, marmarra, eskuarki norbait edo zerbait gaitzestekoa. ik **erantzuki**[1].

Zilegi izan bekit ene **erasiaren** bururatzea Doktor Nafarraren hitz hauekin berekin, hor ageri baita, alderdi eta herrialde guztien gainetik, haren katoliko "orokorraren" -haizu baldin bazait horrela hitz egitea- itxura sendoa. Piarres Xarriton

Aipa genezakeen berdin, sasoi berean, bere beribilean ninderaman kalonje argiaren **erasia** : Zer behar duk, gizona, horrela batailaturik? Izanen dituk beti hire aupatzeko prest diren lagunak, baina jakin ezak, nik erranik, hemendik hogei urtera, ez dela Euskal Herririk izanen! Piarres Xarriton

Aznar dena **erasia** . Herria

Jeltzaleak, sozialixtak eta eskuindarrak, denak arizan dira dena prediku eta **erasia** . Herria

Korsikan, bide bera hartu dute bainan dena **erasia** eta zinkurina. Herria

Ainitzek ez onartzen gobernuburuaren erabakia, izanik ere legezkoa, bazterretan bada **erasia** eta sukar! Herria

Haren ahoak ez dik iraina eta **erasia** baizik erraten. Jon Muñoz

Izan baitira **erasiak** , protestak, sinadura biltzeak eta manifestaldiak kontra egiteko. Herria

Ariel Sharon Israeleko lehen minixtroak **erasia** frango entzun du egun hautan, Gaza lurraldeko gertakari deitoragarri bat dela kausa. Herria

Hiriko karrikan amil zegoela, ardo botila aldamenean, ez arras amoinaka baina kasik, bikote zuhur baten **erasiak** jasan zituen. Itxaro Borda

Ez zituztela ulertzen gure **erasi** eta mehatxuak. Herria

Aitortu dituzte beren ahalgea eta **erasiak** obra txar horien egileeri buruz. Herria

Manifestaldiak egin dituzte **erasia** ainitzekin aste hauetan. Herria

Cartier ere hurbildu zaizue, sarjentaren **erasiak** erakarririk. Xabier Montoia

Eta, nola gerta, **erasiak** biltzen badituzte hemen, irri batekin urrunago joaiten dira. Michel Oronoz

Parabisuan, Ebak Adami **erasiak** egin ziozkan: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erasiak ukanik naski Amerika eta Inglaterraren aldetik gibelerat egin du eta ez du hortan Berlusconiren sinesgarritasunak deusik irabazi. Herria

Emazteari zanpa eta tunakoka ordenak istantean betetzen ez baldin bazituen, haurrak **erasiaz** eta azotez hezten. Itxaro Borda

-Eta zuk, zer dakizu lur honetaz? -galdera horretan jakin-minak **erasia** gainditzen zuen. Elena Touyarou

2 (izenondoekin)

Aspaldiko lagun bat gurutzatu dut bidean; da pottoka eder zenbaiten jabea, usaiako ongi etorria eginik elgarri, **erasia** arin batzu eginik, iduritu zait frango minbera, erran daut. Herria

Gurutzefikatuak poetari egin **erasia** amultsuz beteriko deia eta poetaren erantzun patetikoa. Piarres Aintziart

Baina nigar kolektiboak, **erasia** bortitzen beldurrak, laudorio, lausengukeri eta apaltasunak, eginbide gogorrak, ideia bakun hetsiak... zer zen hori? Piarres Aintziart

Bakardadea baino eramangaitzagoa zitzaion amaren **erasia** amaigabea. Xabier Montoia

Bekatu arinak emaiten duen urriki gabeko **erasia** birtualak goxaturik, lokartzen naiz. Piarres Aintziart

"Norbaiti zakurrarenak esan", hots, **erasia** gorria egin, bereak eta asto beltzarenak esan. Gotzon Garate

Funtsean, biltzen zuen **erasia** onik, aitamek emanik! Daniel Landart

Hik ere ez egin, bada, bortxa hori ene belarriari, alegia entzutera emanik heure buruaren aurkako **erasia** horrenik: bazakiat ez haizela alferra. Juan Garzia

3 ***erasian*** *adlag* hitz egiten; murmurikatzen. ik **erasiaka**.

Ahots urrun batzuk entzun dituzue, **erasian** edo. Xabier Montoia

Zuen artean dabil, zuetarik bakoitza aztertuz, **erasian** eta bulkaka. Xabier Montoia

Gizon aurpegiko aker bat eta emakume aurpegiko ahuntz bat, biak ile zuri luzez estaliak, etengabeko **erasian** , hizkuntza ezezagun batean elkarri errietan. Josu Zabaleta

Nor ikusi eta otto Iza bera, **erasian** eta zigarro-puru bat erretzen. Jose Angel Irigaray

4 ***erasia aldi*** ik **erasialdi**.

5 ***erasia egin***

Erasia egiten dizuelarik, nehoiz baino biziago egiten dizue. Xabier Montoia

Moshe Yalon jeneralak, alta hau ere bere armadaren buruzagitzan aski gogorra delarik, zerbait **erasia egin** dio palestinarren alderat Sharonek erakusten duen bortitzegiaren gatik, baina bestea beti berean, iduriz bederen. Herria

· Ebak Adami **erasiak egin** ziozkan: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gerlaren alde palantaturik Polonia, Txekia eta Hungriari Chirakek **egin erasiek** ez dute deus antolatu. Herria

---

erasiaka *adlag* hitz egiten; murmurikatzen.

Bisitariari ahoaren zabaltzeko betarik utzi gabe, **erasiaka** hasi zitzaion. Elena Touyarou

Berehalaxe aspertzen dira, eta **erasiaka** hasten, zeharo bihozgabea zarela eta abar esanez. Joxe Austin Arrieta

Ez dakit zerk begiratu ninduen **erasiaka** hastetik! Janbattitt Dirassar

Batzu **erasiaka** , agorril hortan preseski gobernua ez dela aski mugitu, ez aski goiz eta ez behar bezala gisa guziz. Herria

Gurutzatzen nituen begitarte akituak eder kausitzen nituen eta nioen, edozein amodio itxura aldatzailea zela, bikote bat elkarri **erasiaka** hauteman nuen arte. Itxaro Borda

Madriletik alde bat **erasiaka** ari dira Frantziari, frantses poliza sobera lazoa dela. Herria

-Bakarrik milesker? -Mozorroaren beheko ahotsak **erasiaka** ari zela zirudien-. Elena Touyarou

Marysek alabaina hutsak eta akatsak baizik ez zizkion aurkitzen, eta bakarretan Jakes semeak, andrearen ildotik, **erasiaka** erabiltzen zuen. Itxaro Borda

Erotu ginen biak orduan, eta zernahi erran genion zaintzaleari, **erasiaka** eta oihuka: ea zer eginen ote ziguten isilarazteko? Filipe Bidart

---

erasialdi *(orobat **erasia aldi**)* *iz*

Amaren **erasialdia** eta aitaren hira pairatuko zituen. Itxaro Borda

Aita, Pierresekin mintzatu zelakoan goizeko mezatik landa, angelusaren tenoreko zazpiak, ardurenean **erasialdi** galanta bildurik ginen. Itxaro Borda

Jende gisako baliorik ez bazenu bezala, belarri barnea erretzerainoko **erasialdi** ederrak ere bildu dituzu zuretik kantitu gabe. Itxaro Borda

Ezbehar honengatik **erasia aldi** bortitz bezain egokiaren ihardukitzera apailatu ziren. Itxaro Borda

Txokok lanetik **erasia aldi** ederra bota zion, telefonoak eta beren ibilerak susmopean zirela frogatzen hasia zelako. Itxaro Borda

---

erasiatu, erasia(tu), erasiatzen du *ad* agiraka egin, erasia egin.

-Isil hadi, Simon-Pierre, ez duk eguna - **erasiatu** zuen Benoit bere anaiak. Daniel Landart

Duela urtea Jakes Haundiak **erasiatu** zuen Sarkozy erranez: "Je décide, il exécute". Herria

Zorri zikiratzen aments? - **erasiatu** zuen, zakarki, bilkuratik ateratzean. Elena Touyarou

"Sobera fite zoazte!" **erasiatu** zituen gizon xaharrak. Ramuntxo Etxeberri

Espainia honengatik **erasiatzen** ote digute oldarkor "zu espainola zara ala ez" dontsu hori? Joxe Azurmendi

Bar des Amis-ko nagusiak klienteren batekin sobera denboraz solasean ikusten zuenean, beti **erasiatzen** zuen, ahoan bilorik gabe. Itxaro Borda

Ez zegoen Barbeito isilduko zuen fraiderik, jo ere ez zuten egiten jadanik, **erasiatu** baino ez zuten egiten mesedez egon zedila hamar minutu hitzik egin gabe. Koldo Izagirre

Erran dit ere, doi bat **erasiatzen** ninduela, euskal literaturaz, gure historiaz, hemengo ekonomiaz deus guti nakiela. Piarres Aintziart

Munhorantz zihoalako usu **erasiatzen** zuen amak, ahoak eman ahala: alferkeria leporatzen zion, hilen gaitun, zer eginen dinagu hitarik, urde zikina edo haur ustela-ka. Itxaro Borda

Gurasoek, alabaina, lehen motako ekintzak gaitzetsiz eta horiengatik beren seme-alabak maiz **erasiatuz**, eta, alderantziz, bigarren motakoak aholkatuz eta haiek goraipatuz, lortu dute ekintza haiei Tristurazko zirrarak lotzea eta hauei, berriz, Poztasunezkoak. Piarres Xarriton

Gogoan neukan, Jessicaren omore txarra kontuan atxikiz, bi milagarren urte honetan, egunak **erasiatua**, larderiatua, gogorki akuilatua, hastiatua, gaitzetsia eta honenbestez kanporatua izaten higatu nuela. Itxaro Borda

---

eraskin ik **eranskin**.

---

eraskintxo ik **eranskintxo**.

---

eraskotako *izlag* era askotakoa.

Tentaldiengatik urduri, esturengatik zapaldua, **eraskotako** etsaiengatik zauritua eta akitua. Joan Mari Lekuona

Sentiberatasuna eta **eraskotako** arierak, batetik bestera ibiliz, hemendik hara. Joan Mari Lekuona

Pozbide eta kontsolamendu bihurtzen da nire oinazea, denik eta handiena eta **eraskotakoena** izan oinaze hori. Joan Mari Lekuona

---

erasle *iz* hiztuna.

Erasleek jakinarazten dute eskola sartzea iraganen dela irailaren 1ean asteazkenean 8ak et'erditan. Herria

---

erasmismo *iz* Rotterdango Erasmoren doktrina filosofikoa.

Liburuan apezei egiten zaien kritika, Erdi Aroko koordenadetan egindako kritika da, ala **erasmismoak** eragindakoa? Berria - Kultura

Mistizismoarekin batera **erasmismoaren** eta iluminatuen espiritua nabari da haren ekarrian -garaiaren lekuko izaki-, eta hori larrutik ordaindu zuen nafarrak. Askoren artean

Aztertu beharko litzateke **erasmismoaren** eragina XVI. mendean Araban zer neurritakoa zen. Berria - Kultura

---

eraso[1] *(**11.445** agerraldi, **239** liburu eta **3.818** artikulutan; ETCn **114.220** agerraldi)*, eraso, erasotzen **1** du *ad* norbaiten aurka indarkeriaz abiatu, hiltzeko edo kalte egiteko asmoz. *(ikus beheko konbinatorian* eraso *aditzaren eta izenaren agerraldi maizkoenak).*

2 (kiroletan)

Gutierrezek mendatea bukatzear zela **eraso** zuen. Berria - Kirola

Atzoko TKE Ligako estropadan Astillero zen, lehen bi estropadetako emaitzen ondoren, zaurituta iritsi zena, eta bere zaleen aurrean bortitzago **eraso** zuen. Berria - Kirola

Stefano Garzelli eta Wladimir Belli bakarrik ausartu ziren **erasotzen**. Berria - Kirola

Inolako ordenarik gabe **erasotzen** zuten herbeheretarrek, orden eta gogo gabe. Berria - Kirola

Simeoni **erasotzen** lehena, Moreau eta Virenque ondoren mendiko elastikoa irabazteko lehian dabiltza biak, haiek harrapatuta, Rasmusen eta Egoi Martinez hurrena, nafarrak ezin eta Rasmusen aurrera. Berria - Kirola

Ez da oso ohikoa Euskalteleko txirrindulariak ordekan protagonista izatea, «hasiera batean ez neukan **erasotzeko** asmorik» onartu zuen Floresek. Berria - Kirola

Juanma Garatek une hori baliatu zuen **erasotzeko**. Berria - Kirola

Mayo **erasotzera** behartuta dago; berak esan zuen: «Hurrengo helburua etapa irabaztea da», eta, horretarako, ez dago Pirinioetakoa baino leku egokiagorik. Berria - Kirola

Athelticen jokoa nahasia izan zen, bai defendatzerako orduan eta baita **erasotzerakoan** ere. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aire eraso (11); **aire eraso batean** (7); **aurka eraso** (13); **aurkako beste eraso** (7); **aurkako eraso** (93); **aurkako eraso ugari** (8); **aurkako hainbat eraso** (7); **baina eraso** (13); **barre eraso** (21); **barre eraso etengabeen** (20); **bat eraso** (7); **batek eraso** (30); **batek eraso egin** (7); **batekin eraso** (6); **baten kontrako eraso** (6); **bati eraso** (111); **bati eraso egin** (18); **bati eraso eta** (7); **bati eraso zion** (10); **bati eraso zioten** (27); **berriro eraso** (8); **beste eraso** (64); **beste eraso bat** (32); **beste eraso batean** (9); **bi eraso** (24); **bigarren eraso** (6); **bonba eraso** (7); **bonbaz eraso** (8); **bulegoari eraso** (7); **da eraso** (13); **dela eraso** (6); **die eraso** (10); **dio eraso** (7); **dira eraso** (8); **diren eraso** (11); **dituen eraso** (8); **dituzten eraso** (6); **du eraso** (15); **duen eraso** (9); **dute eraso** (6); **duten eraso** (6); **edo eraso** (7); **egin zion eraso** (13); **egin zioten eraso** (15); **egindako eraso** (31); **egindako eraso batean** (8); **eginiko eraso** (25); **egiten die eraso** (8); **egoitzari eraso** (18); **egoitzari eraso zioten** (7); **emakume bati eraso** (6)

eraso asko (6); **eraso bakoitza** (6); **eraso bakoitzean** (10); **eraso bat** (124); **eraso bat egin** (13); **eraso bat gertatu** (8); **eraso bat izan** (20); **eraso batean** (95); **eraso batean hil** (9); **eraso batean parte** (10); **eraso batek** (9); **eraso baten** (36); **eraso baten ondorioz** (13); **eraso batzuetan** (6); **eraso behar** (14); **eraso bortitz** (7); **eraso bortitza** (14); **eraso bortitzak** (16); **eraso die** (10); **eraso diete** (23); **eraso dio** (9); **eraso diote** (27); **eraso edo** (12); **eraso egileek** (6); **eraso egin** (318); **eraso egin behar** (8); **eraso egin dio** (8); **eraso egin diote** (7); **eraso egin eta** (27); **eraso egin izana** (6); **eraso egin nahi** (8); **eraso egin ondoren** (8); **eraso egin zien** (13); **eraso egin zieten** (27); **eraso egin ziola** (8); **eraso egin zion** (39); **eraso egin zioten** (38); **eraso egin zituen** (6); **eraso egin zituzten** (7); **eraso eginez** (15); **eraso egingo** (34); **eraso egitea** (28); **eraso egiteagatik** (10); **eraso egiteko** (70); **eraso egiteko prest** (6); **eraso egiten** (118); **eraso egiten dio** (9); **eraso egiten diote** (6); **eraso egiten saiatu** (6); **eraso egiten zieten** (9); **eraso egitera** (13); **eraso ere** (6); **eraso eta** (181); **eraso eta hartu** (7); **eraso eta mehatxuak** (6); **eraso etengabeen** (20); **eraso etengabeen ondorioz** (20); **eraso ez** (10); **eraso festa** (7); **eraso fisikoak** (7); **eraso gehiago** (47); **eraso gehien** (6); **eraso gehienak** (6); **eraso gogorra** (10); **eraso gogorrak** (10); **eraso guztiak** (13); **eraso handiena** (6); **eraso hartan** (9); **eraso hau** (11); **eraso hauek** (12); **eraso honen** (12); **eraso honetan** (13); **eraso honi** (6); **eraso hori** (16); **eraso horiek** (39); **eraso horien** (14); **eraso horietan** (9); **eraso horrek** (6); **eraso horren** (7); **eraso horretan** (10); **eraso hura** (9); **eraso izan** (34); **eraso izan dira** (8); **eraso izan ziren** (16); **eraso izana** (7); **eraso jasan** (8); **eraso joko** (7); **eraso jokoa** (6); **eraso jokoan** (9); **eraso larriak** (6); **eraso militar** (11); **eraso militarra** (8); **eraso militarrak** (8); **eraso mota** (9); **eraso nahi** (16); **eraso ondoren** (6); **eraso prebentiboak** (15); **eraso sektarioak** (6); **eraso sexualak** (16); **eraso suizida** (53); **eraso suizida batean** (17); **eraso suizida izan** (6); **eraso suizidak** (13); **eraso suizidan** (10); **eraso suiziden** (6); **eraso terrorista** (11); **eraso terroristak** (8); **eraso terroristen** (9); **eraso ugari** (21); **eraso ugari egin** (7); **eraso zidan** (15); **eraso zidaten** (8); **eraso zien** (33); **eraso zietela** (8); **eraso zieten** (68); **eraso ziola** (11); **eraso zion** (114); **eraso ziona** (6); **eraso zionean** (7); **eraso ziotela** (6); **eraso zioten** (129); **eraso zioten atzo** (9); **eraso zioten eta** (10); **eraso ziotenean** (10); **eraso zuen** (9); **eraso zuzenak** (6)

erasoak eraso (15); **ere eraso** (38); **erresistentziaren eraso** (8); **erresistentziaren eraso batean** (6); **eta eraso** (156); **eta eraso egin** (32); **eta eraso egiteko** (6); **eta eraso egiten** (7); **etxeari eraso** (14); **ez du eraso** (6); **ez eraso** (10); **gabe eraso** (9); **gertatutako eraso** (16); **gogor eraso** (16); **gogor eraso zion** (7); **hainbat eraso** (49); **hainbat eraso egin** (17); **hainbat eraso izan** (10); **hainbat eraso jasan** (6); **halako eraso** (7); **hamaika eraso** (6); **hil ziren eraso** (6); **hiriari eraso** (12); **hiriari eraso eta** (6); **hiru**

eraso (12); **honi eraso** (7); **iraki eraso** (15); **izandako eraso** (24); **jasandako eraso** (7); **jerusalemi eraso** (6); **kale eraso** (21); **kale eraso batean** (7); **koktelez eraso** (6); **konboi bati eraso** (7); **kontra eraso** (12); **kontrako eraso** (74); **kontrako eraso bat** (8); **kontrako eraso batean** (6); **labanaz eraso** (13); **oso eraso** (7); **ustekabean eraso** (7); **ustez eraso** (6); **zen eraso** (18); **zien eraso** (7); **zion eraso** (22); **zioten eraso** (20); **ziren eraso** (14); **zituen eraso** (10); **zuen eraso** (23); **zuten eraso** (11); **zuzenean eraso** (8)

askatasunaren aurkako erasoa (8); **atzoko erasoa** (6); **aurkako erasoa** (148); **aurkako erasoa da** (8); **aurkako erasoa dela** (11); **aurkako erasoa gaitzetsi** (6); **aurkako erasoa izan** (17); **azken erasoa** (14); **baina erasoa** (8); **baten aurkako erasoa** (9); **baten kontrako erasoa** (7); **bati sexu erasoa** (9); **bere gain erasoa** (7); **bigarren erasoa** (6); **bonba erasoa** (8); **da erasoa** (18); **du erasoa** (16); **duen erasoa** (6); **dut erasoa** (6); **dute erasoa** (13); **egin zuen erasoa** (6); **egin zuten erasoa** (11); **egindako erasoa** (23); **eginiko erasoa** (11); **egoitzaren aurkako erasoa** (6); **erasoa abiatu** (6); **erasoa amaitu** (6); **erasoa baino** (8); **erasoa bere** (18); **erasoa bere gain** (17); **erasoa da** (27); **erasoa dela** (29); **erasoa dela eta** (11); **erasoa egin** (59); **erasoa egin eta** (6); **erasoa egin zuen** (12); **erasoa egin zuten** (11); **erasoa egiteagatik** (6); **erasoa egiteko** (18); **erasoa ere** (10); **erasoa eta** (43); **erasoa ez** (21); **erasoa gaitzesteko** (12); **erasoa gaitzetsi** (48); **erasoa gaitzetsi du** (6); **erasoa gaitzetsi eta** (15); **erasoa gaitzetsi zuen** (14); **erasoa gertatu** (28); **erasoa gertatu zen** (11); **erasoa hasi** (14); **erasoa ikertzeko** (8); **erasoa izan** (77); **erasoa izan da** (9); **erasoa izan dela** (7); **erasoa izan eta** (8); **erasoa izan zela** (9); **erasoa izan zen** (24); **erasoa izango** (7); **erasoa jasan** (26); **erasoa jaso** (11); **erasoa jo** (70); **erasoa jo eta** (17); **erasoa jo zuen** (10); **erasoa jota** (6); **erasoa jotzeko** (9); **erasoa prestatzen** (11); **erasoa prestatzen ari** (9); **erasoa salatu** (15); **erasoa salatzeko** (10); **ere erasoa** (9); **eta erasoa** (25); **ez zuen erasoa** (6); **gain erasoa** (8); **gaitzetsi zuen erasoa** (10); **gertatu zen erasoa** (18); **hartu zuen erasoa** (7); **iraken aurkako erasoa** (20); **izan da erasoa** (6); **izan zen erasoa** (26); **izandako erasoa** (9); **jo zuen erasoa** (32); **jo zuten erasoa** (9); **kale erasoa** (14); **kontrako erasoa** (95); **kontrako erasoa da** (9); **kontrako erasoa egin** (12); **kontrako erasoa izan** (10); **lehen erasoa** (18); **lehenengo erasoa** (8); **sexu erasoa** (22); **ustezko erasoa** (6); **zen erasoa** (50); **zion erasoa** (8); **zuela erasoa** (7); **zuen erasoa** (86); **zuten erasoa** (39)

aire erasoak (14); **armadaren erasoak** (6); **arteko erasoak** (6); **askatasunaren aurkako erasoak** (7); **aurkako erasoak** (147); **aurkako erasoak salatu** (13); **azken erasoak** (9); **bere erasoak** (10); **bi erasoak** (7); **bonba erasoak** (6); **dira erasoak** (10); **diren erasoak** (19); **dituen erasoak** (8); **dituzte erasoak** (10); **dituzten erasoak** (15); **du erasoak** (9); **dute erasoak** (6); **egin zituzten erasoak** (6); **egindako erasoak** (29); **eginiko erasoak** (12); **emakumeen aurkako erasoak** (8); **erasoak areagotu** (14); **erasoak bere** (7); **erasoak bere gain** (6); **erasoak dira** (6); **erasoak direla** (27); **erasoak direla eta** (19); **erasoak egin** (32); **erasoak egingo** (7); **erasoak egitea** (12); **erasoak egiteagatik** (11); **erasoak egiteari** (13); **erasoak egiteko** (28); **erasoak egiten** (30); **erasoak ekiditeko** (6); **erasoak eragozteko** (8); **erasoak eraso** (15); **erasoak ere** (17); **erasoak eta** (57); **erasoak eta mehatxuak** (6); **erasoak eten** (15); **erasoak etengabeak** (6); **erasoak eteteko** (6); **erasoak ez** (33); **erasoak ez dira** (8); **erasoak ez zuen** (7); **erasoak gaitzetsi** (28); **erasoak gaitzetsi eta** (7); **erasoak gaitzetsi zituen** (8); **erasoak geldiarazteko** (6); **erasoak gelditzeko** (7); **erasoak gertatu** (13); **erasoak gertatzen** (7); **erasoak hasi** (6); **erasoak ikertzen** (15); **erasoak ikertzen ari** (8); **erasoak izan** (37); **erasoak izan dira** (10); **erasoak izan ziren** (13); **erasoak jasan** (17); **erasoak jasaten** (14); **erasoak jaso** (6); **erasoak pairatu** (6); **erasoak prestatzen** (8); **erasoak prestatzen ari** (6); **erasoak saihesteko** (13); **erasoak salatu** (37); **erasoak salatu ditu** (14); **erasoak salatu dituzte** (6); **erasoak salatu zituen** (10); **erasoak salatzeko** (21); **erasoak salatzen** (6); **erasoak ugaritu** (12); **erasoak ugaritu egin** (6); **erasoak zirela** (8); **erasoak zirela eta** (6); **ere erasoak** (11); **erresistentziaren erasoak** (8); **eta erasoak** (66); **eta sexu erasoak** (7); **halako erasoak** (16); **horrelako erasoak** (8); **indarren aurkako erasoak** (6); **israelgo armadaren erasoak** (6); **izandako erasoak** (17); **kale erasoak** (36); **kontrako erasoak** (99); **kontrako erasoak salatu** (6); **madrilgo erasoak** (13); **mehatxuak eta erasoak** (6); **sexu erasoak** (55); **sexu erasoak egin** (6); **sexu erasoak egiteagatik** (11); **ustezko erasoak** (6); **ziren erasoak** (9); **zituen erasoak** (13); **zituzten erasoak** (12); **zuen erasoak** (10)

aritu ziren erasoan (6); **aurkako erasoan** (45); **azken erasoan** (11); **bai erasoan** (15); **baina erasoan** (18); **baten aurkako erasoan** (26); **baten kontrako erasoan** (8); **batez ere erasoan** (8); **da erasoan** (12); **defentsan eta erasoan** (11); **defentsan zein erasoan** (11); **du erasoan** (6); **dute erasoan** (6); **egindako erasoan** (34); **eginiko erasoan** (25); **erasoan ari** (9); **erasoan aritzeko** (7); **erasoan bai** (6); **erasoan batez** (6); **erasoan batez ere** (6); **erasoan beste** (12); **erasoan bi** (11); **erasoan erakutsitako** (6); **erasoan ere** (37); **erasoan eta** (23); **erasoan ez** (20); **erasoan ez ezik** (6); **erasoan gutxienez** (6); **erasoan hil** (11); **erasoan hil ziren** (8); **erasoan hildako** (6); **erasoan izan** (6); **erasoan ondo** (7); **erasoan oso** (7); **erasoan parte** (16); **erasoan parte hartu** (10); **erasoan zein** (16); **erasoan zein defentsan** (16); **ere erasoan** (12); **eta erasoan** (92); **eta erasoan ere** (10); **hil ziren erasoan** (9); **izandako erasoan** (23); **kontrako erasoan** (16); **taldeak erasoan** (6); **zauritu ziren erasoan** (9); **zein erasoan** (11); **zen erasoan** (22); **ziren erasoan** (31); **zituzten erasoan** (7); **zuen erasoan** (24); **zuten erasoan** (19)

aire erasoen (6); **aurkako erasoaren** (13); **aurkako erasoari** (7); **aurkako erasoei** (8); **aurkako erasoek** (10); **aurkako erasoekin** (8); **aurkako erasoen** (17); **aurkako erasoetan** (12); **azken erasoek** (10); **bi erasoetan** (6); **dira erasoetan** (13); **diren erasoen** (8); **dituen erasoen** (7); **egindako erasoaren** (7); **egindako erasoetan** (14); **eginiko erasoetan** (10); **ekin zion erasoari** (9); **erasoarekin zerikusia** (10); **erasoaren aurka** (6); **erasoaren aurrean** (19); **erasoaren aurretik** (8); **erasoaren berri** (36); **erasoaren berri eman** (6); **erasoaren erantzukizuna** (17); **erasoaren erantzule** (11); **erasoaren erantzule izatea** (6); **erasoaren erantzulea** (7); **erasoaren erantzuleak** (6); **erasoaren helburua** (12); **erasoaren ondoren** (23); **erasoaren ondorioz** (17); **erasoaren ostean** (11); **erasoaren ustezko** (7); **erasoari aurre** (23); **erasoari aurre egin** (7); **erasoari aurre egiteko** (8); **erasoari dagokionez** (7); **erasoari ekin** (25); **erasoari ekin zion** (8); **erasoari erantzun** (11); **erasoari erantzuteko** (7); **erasoari eutsi** (6); **erasoaz gain** (6); **erasoei aurre** (35); **erasoei aurre egin** (9); **erasoei aurre egiteko** (19); **erasoei buruz** (7); **erasoei buruzko** (8); **erasoei erantzun** (9); **erasoei erantzuteko** (10); **erasoek eragindako** (8); **erasoek eta** (6); **erasoek ez** (17); **erasoek ez dute** (6); **erasoekin ustez** (11); **erasoekin zerikusia** (10); **erasoen atzean** (6); **erasoen atzetik** (7); **erasoen aurka** (6); **erasoen aurkako** (11); **erasoen aurrean** (32); **erasoen aurretik** (6); **erasoen beldur** (12); **erasoen berri** (17); **erasoen erantzule** (10); **erasoen eta** (8); **erasoen gaineko** (6); **erasoen harira** (7); **erasoen inguruan** (8); **erasoen inguruko** (8); **erasoen jomuga** (10); **erasoen kontra** (6); **erasoen kontrako** (6); **erasoen ondoren** (27); **erasoen ondorioz** (26); **erasoen ondotik** (9); **erasoen ostean** (10); **erasoetan eta** (6); **erasoetan gutxienez** (6); **erasoetan parte** (27); **erasoetan parte hartu** (13); **erasoetan parte hartzea** (10); **erasoetatik babesteko** (11); **erasoez gain** (6); **erasoez geroztik** (9); **erresistentziaren erasoetan** (12); **eta erasoaren** (13); **eta erasoari** (8); **eta erasoari ekin** (6); **eta erasoei** (7); **eta erasoek** (9); **eta erasoen** (18); **eta erasoen aurrean** (6); **hil dira erasoetan** (12); **izandako erasoaren** (10); **izandako erasoen** (7); **izandako erasoetan** (23); **kale erasoen** (11); **kale erasoetan** (11); **kale erasoetan parte** (10); **kontrako erasoaren** (7); **kontrako erasoei** (9); **kontrako erasoek** (7); **kontrako erasoen** (10); **madrilgo erasoen** (6); **sexu erasoen** (6); **zen erasoaren** (12); **zion erasoari** (14); **zioten erasoari** (6); **ziren erasoetan** (8); **zuen erasoaren** (17); **zuen erasoaren erantzukizuna** (6); **zuten erasoaren** (8)

bi erasotan (18); **erasoko dio** (11); **erasoko erdilari** (6); **erasoko errebotea** (6); **erasoko errebotean** (7); **erasoko jokalari** (7); **erasoko jokalariak** (6); **erasoko joko** (6); **erasoko jokoa** (30); **erasoko jokoan** (16); **erasoko jokoaren** (6); **erasora jo** (11); **erasorako prest** (7); **erasoren bat** (24); **erasorik egin** (11); **erasorik ez** (21); **erasorik handiena** (6); **erasorik jo** (7); **erasorik jo gabe** (6); **erasotan parte** (6); **eta erasoko** (25); **eta erasora** (8); **eta erasorako** (7); **eta erasorik** (6); **hainbat erasoren** (9); **hainbat erasotan** (42); **izandako hainbat erasotan** (6); **taldearen erasoko** (6); **zen erasorik** (7)

---

eraso[2] **1** *iz* erasotzea. *(ikus* eraso *aditzaren konbinatorian* eraso *izenaren agerraldi maizkoenak).*

2 (kiroletan)

Carvalhok eta Andradek erraz, oso erraz mozten zituzten **eraso** guztiak. Berria - Kirola

Portlanden **erasoa** ez zen izan, inondik inora, Txapeldunen Ligako finalean ari den talde handi bati dagokiona. Berria - Kirola

Zelai erdiko jokalariak ez ziren inondik inora ageri, eta horren ondorioz, Bouma eta Stam atzelariek zuten **erasoarekin** zubia egiteko ardura. Berria - Kirola

Helmugatik gertuago berriro ere **erasoa** jotzen saiatu naiz, taldea hautsi badut ere ez zait guztiz ondo irten, azken hirukotean Pozzatto sartu delako, bizkorrena alegia. Berria - Kirola

Ordu arte, Reala **erasoko** jokoan ekimena bereganatzen saiatzen zen, baloia edukiz eta joko polita eta ikusgarria eginez. Berria - Kirola

Kontuak kontu, Osasunak **erasoko** bost jokalari galdu ditu. Berria - Kirola

Atea hutsean mantentzea, hori zen helburu nagusia, **erasoari** uko egin gabe, baina seguru jokatuta. Berria - Kirola

Baloia berreskuratutakoan **erasora** egiteko grina gutxi erakusten zuten Javier Aguirreren mutilek. Berria - Kirola

Erasorako ahalmena du, eta gainera, hau dio Lagisquetek: «Oraindik badugu hobetzeko tarterik». Berria - Kirola

Hondarribia-Irunek **erasoan** saskipean jokatzea erabaki zuen, eta fruitu onak eman zizkion (13-4). Berria - Kirola

Erasoan itolarrian eta argirik gabe jardun ziren, askotan saskira jaurti ezinik. Berria - Kirola

Laurden osoan zortzi puntu baino ez zituen sartu Hondarribia-Irunek, eta eskerrak espainiarrak ez ziren **erasoan** oso fin ibili (38-41). Berria - Kirola

Jokalari bat oso ona izan defentsan, baina **erasoan** ez badaki jokatzen, ez genukeen fitxatuko. Berria - Kirola

Erasoan Vargas (bost gol) eta Anusic (sei) izan ziren onenak. Berria - Kirola

Erasora jotzen dute etengabe, eta bizkarra hartzeko abantaila izan daiteke hori guretzat. Berria - Kirola

Frantzia **eraso** bizian ari zen, Elizaldek baloia berdegunetik jaso, eskuinera pasea egiteko keinua egin eta hagetara jo zuen zuzenean. Berria - Kirola

Vicioso ez zen gustura, eta **eraso** bortitza jo zuen. Berria - Kirola

Zazpigarren itzulian, ordea, Van der Lindenek agerian utzi zituen bere indarrak **eraso** bortitz batekin. Berria - Kirola

83. kilometrora arte ez zen **eraso** arrakastatsurik izan. Berria - Kirola

Nafarrek **eraso** sendoagoa erakutsi beharko dute kanporaketa gainditzeko. Berria - Kirola

Eskarmentua dutenek, ordea, **eraso** eraginkorrena, mingarriena, malda bukatzen denean jotzen dute, gaina harrapatuta lasaitzeko joera izaten baitute jazarpena egiten duten taldeek. Berria - Kirola

Cunegok eta Simonik bi edo hiru taldekide izan zituzten alboan uneoro, gehien komeni zitzaien erritmoa jartzeko, eta **eraso** ahaleginak zailtzen zituen erritmo itoa jarri zuten Bertagnolik, Szmydek eta Eddy Mazzolenik. Berria - Kirola

Defentsan erritmo bizia ezarriz eta **eraso** trantsizio bizkorrekin Baskoniak aise zabaldu zuen markagailuko tartea. Berria - Kirola

Joventut ACB Ligan **eraso** joko biziena, ikusgarrienetakoa egiten duen taldea delako. Berria - Kirola

Osasunak nahiko eroso eusten zien Castelloren **eraso** jokaldiei. Berria - Kirola

Defentsa itogarria, **eraso** sistema errazekin nahasten dute. Berria - Kirola

Azken tartea polita izan zen, baina **eraso** festa hasi aurretik ere ez zen itsusia izan. Berria - Kirola

3 ***eraso egin***

Aldi hartan, Siriako errege Hazaelek Gat hiriari **eraso egin** eta hartu zuen. Elizen arteko biblia

Iratiko basotik igaro ziren biak, eta zenbait basurdek **eraso egin** zieten. Koro Navarro

Sugeek, amorru bizian, **eraso egiten** diote. Juan Garzia

Han, Langogne herrian, emakume bati **eraso egin** zion piztia batek eta zauritu, zaprastatu eta erdi jan ere bai ondoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Katuak, orduan, bere burua egokiera horretan ikusirik, ihes egin ezinik, jiratu, atzaparrak luzatu, eta **eraso egingo** dio txakurrari. Imanol Zurutuza

Bet-Basira heldurik, inguratu eta **eraso egin** zion egun askotan, gudu-tramankuluak erabiliz. Elizen arteko biblia

Gaixtagin gazte batzuek **eraso egin** diote eta 200 dolar ebatsi. Herria

Elkartu ziren, bada, bost erregeak, beren armadekin, eta Gabaon inguratuta, **eraso egin** zioten. Jose Antonio Mujika

Itsas bazterrean ezkutaturik jarriko ziren, Telemako noiz itzuliko, eta **eraso egingo** zioten. Juan Kruz Igerabide

Gainera, uste al duzu Jaunaren baimenik gabe etorri naizela toki honi **eraso egin** eta hondatzera? Elizen arteko biblia

Gaztelukoak geldirik egon ziren, **eraso egin** gabe; hurrengo egunean **eraso egitea** pentsatua zuten, basoaren alde batean talde handi bat ezkutaturik baitzeukaten. Juan Kruz Igerabide

Aldi berean, idumearrek ere, gotorleku egokien jabe eginik, juduei **eraso egiten** zieten. Elizen arteko biblia

Gudarostea, lubaki karlistei kanoiez **eraso egin** ondoren, aurrera zihoan, eta etsaia bere posizioak uzten ari zen, harresietan babes hartuz. Koro Navarro

Oraintxe dut **eraso egiteko** momentua, oraintxe erakutsi behar diot nolako iltzailea naizen. Koldo Izagirre

Sakonean bazekien galdu-gordean zebilen tigrea zela, eta **eraso egiteko** abagune egokia noiz etorriko zain zegoela. Patxi Zubizarreta

Nondik sortzen den elkarri **eraso egiteko** nahia. Esteban Antxustegi

Unibertsitate batzuetatik, zientziaren eta jakintzaren akademiatik hain zuzen ere, **eraso egin** zaio zientziari, zientzia bera espezialista batzuen ustezko asmakizuna besterik izango ez balitz bezala. Pello Salaburu

Airbusi **eraso eginez** erantzun dio Bushek MMEren zigorrari. Berria - Ekonomia

Hitz egin zuenean, niganantz makurtu zen apur bat eta lurrin sarkor hark **eraso egin** zidan berriro. Alberto Ladron Arana

Ni xake jokalaria nintzen eta banekien partidak ez direla irabazten bigarren mailako piezak hartuz, erregeari zuzenean **eraso eginez** baizik. Alberto Ladron Arana

---

erasoaldi *(447 agerraldi, 49 liburu eta 206 artikulutan; ETCn 4.820 agerraldi)* **1** *iz* erasotzea, erasotzen den aldia.

Ezin hiria hartu **erasoaldi** bakar batean. Karlos Zabala

Afganistango Armadako soldaduek **erasoaldia** egin zuten herenegun Kandaharren. Berria - Mundua

Bigarren **erasoaldia** lehenaren aldean are gogorragoa izan zen, eta soldadu bakar bat baizik ez zen itzuli onik. Josetxo Azkona

Hirugarren **erasoaldi** hura beste biak baino laburragoa izan zen. Edorta Jimenez

Israelgo Armada, Jabaliako errefuxiatu gunean zein Beit Hanoun eta Beit Lahia hirietan sartu zen **erasoaldia** abiatzean. Berria - Mundua

Erasoaldiari ekin diote azkenean, egunsentiko lehen argi perla-kolorea lagun, baina kemengabetuta daude gure burdin hesi parera hurbiltzerako. Mirentxu Larrañaga

Israelen **erasoaldia** eteteko NBEko ebazpenari betoa jarri diote AEBek. Berria - Mundua

Erasoaldiaren hasieran, 3 misil jaurti zituen gerra helikoptero batek. Berria - Mundua

Erasoaldiak eragin dituen biktima zibilen kopururik, ordea, ez zuten zehaztu. Berria - Mundua

Bi **erasoaldiak** atzera bota zituzten defendatzaileek ausardia biziaz. Karlos Zabala

Erasoaldiak «segurtasun egoera» ezarri arte iraungo zuela jakinarazi zuten okupazio indarrek. Berria - Mundua

Shamil Basaiev Txetxeniako gerrillari independentisten buruzagiak atzo aldarrikatu zuen berak zuzendu zuela ekainean Ingushetian eginiko **erasoaldia**. Berria - Mundua

Haren segidako **erasoaldiak** Lehenengo eta Bigarren Mundu Gerra deitu zirela. Iñaki Mendiguren

Argi eta garbi sumatzen zituen deabruen **erasoaldiak** bere kontra. Askoren artean

Iruña Okako alkatea Javier Martinezek (PSE-EE) honela hitz egin zuen erasoaren ondoren: «Horrelako **erasoaldiek** ez gaituzte beldurtuko eta lanean jarraituko dugu gure udalerriaren alde». Berria - Euskal Herria

Erasoaldian 10.000 eta 15.000 soldadu inguru parte hartzen ari dira orotara. Berria - Mundua

Jaunaren ardiek berari jarraitu zioten larrialdian eta **erasoaldian**, lotsabidean eta gosean, gaixoaldian eta tentaldian, eta gainerako guztietan; eta ordainez, amaigabeko bizitza hartu zuten Jaunarengandik. Askoren artean

Erasoaldia 250 kiloko bonbez eta bonba su-eragilez burutu zela dio. Edorta Jimenez

Inoiz sentitu gabeko hotz min baten **erasoaldiek** sorgortuta nituen gorputz-atal guztiak. Anjel Lertxundi

Iparraldeko frontean ibili zen batik bat, Bilboko **erasoaldian**. Lutxo Egia

«PPren **erasoaldi** bakoitzean» PSOEk atzera egiten duela uste du Batasunak. Berria - Euskal Herria

Lerro urdinean kontrolatu behar dugu kontraerasorik egin ez dezan eta sakontasunez egin behar ditugu **erasoaldiak**, hegaletatik sartuta. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erasoaldi handi bat, aitortu zidanan, eta lasterka batean itzuliko omen ditun Berlinera, buztana hanka artean dutela. Mirentxu Larrañaga

Iraken inbasioaz geroztiko **erasoaldi** handiena hasi dute AEBek, Samarran. Berria - Mundua

Aristidek ez du **erasoaldi** armatu bati erantzuteko gaitasunik. Berria - Mundua

Erasoaldi bortitza abiatu zuen atzo Israelgo Armadak Gazako iparraldearen aurka. Berria - Mundua

Kurdistango Langileen Alderdiaren kontrako azken urteotako **erasoaldi** gogorrena abiatu zuen ostegunean Turkiako Armadak. Berria - Mundua

Ni lasterka aterea nintzen iragartzeko Federico Barbarossak, **erasoaldi** sutsu baten ondorioz, plater eta baso guztiak txikituak zituela. Pello Lizarralde

Erasoaldi arrakastatsu baten harrapakina. Iñaki Mendiguren

Kanpokoen gol batek urduritasuna sor zezakeen Athleticengan, baina Valverderen taldeak ez zeukan azken unean komeririk pasatzeko gogorik, eta turkiarren **erasoaldi** labur hori etetea lortu zuen. Berria - Kirola

Nik nahiago nuen aldian-aldian neure bidea asmatzea, mugimendu-gerrazko **erasoaldi** zorrotzak jo bat-batean han-hemenka, kokapen-gerraren errutina nekagarrira makurtu ordez. Juan Garzia

Eta noiz baionetazko **erasoaldia**? Txillardegi

Hasi dute elkarren arteko **erasoaldi** beltza. Patziku Perurena

Lucindak ez zuen espero bat-bateko **erasoaldi** hura eta ia joan zitzaion edatekoa kontrako eztarritik. Joxemari Iturralde

Kasuen artean, epe luzeko kartzelaldiak ez ezik, etengabeko **erasoaldiak**, mehatxuak eta atxiloketak ere badaude, baita hainbat erailketa ere. Berria - Kultura

Bestela, sasi-sentiberatasunezko **erasoaldiek** ezustean harrapatzen gaituzte. Itziar Otegi

Lehen **erasoaldia** nirea izanik, orain defentsa lana egitea egokitzen zitzaidan. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Faxisten hegazkin **erasoaldiren** batek kalteturik, hantxe zegoen gure patruila-ontzietako bat. Edorta Jimenez

Sri Lanka Gobernuko Bakerako Idazkaritzaren buru Palitha Kohonak aire **erasoaldia** «ekintza bakana» dela esan zuen. Berria - Mundua

Nola antolatuko duzu musika **erasoaldia**? Felipe Juaristi

Kanoiek huts eginez gero,eskuko iskiluekin egin beharko ote genion aurre **erasoaldi** bati. Edorta Jimenez

Gure artean gauzak okertzen hasi zirenetik (hasieran grazia egiten diguten gauza berberek sortzen digute gero ondoeza) maiz izaten zituen maitasun **erasoaldi** horiek. Joxean Agirre

Nerbio **erasoaldi** luze bat. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako erasoaldi (6); **azken urteotako erasoaldi** (4); **beste erasoaldi** (7); **beste erasoaldi bat** (3); **beste erasoaldi batean** (3); **du erasoaldi** (3); **erasoaldi bat** (6); **erasoaldi batean** (5); **erasoaldi bortitza** (3); **erasoaldi bortitzena abiatu** (3); **erasoaldi egin** (4); **erasoaldi gogorra** (7); **erasoaldi gogorrena** (6); **erasoaldi gogorrena abiatu** (3); **erasoaldi handi** (4); **erasoaldi handi bat** (3); **erasoaldi handia** (5); **erasoaldi honek** (3); **erasoaldi hura** (4); **erasoaldi militar** (3); **erasoaldi militarra** (5); **kontrako erasoaldi** (6); **kontrako erasoaldi gogorra** (3); **ppren erasoaldi** (3); **urteotako erasoaldi** (5); **urteotako erasoaldi gogorrena** (3)

abiatu zuten erasoaldia (3); **ari den erasoaldia** (4); **armadaren erasoaldia** (4); **aurka erasoaldia** (3); **aurkako erasoaldia** (10); **bigarren erasoaldia** (4); **den erasoaldia** (4); **egindako erasoaldian** (9); **erasoaldia abiatu** (11); **erasoaldia abiatu zuen** (3); **erasoaldia egin** (9); **erasoaldia egin zuen** (3); **erasoaldia egin zuten** (3); **erasoaldia egiteko** (3); **erasoaldia eta** (4); **erasoaldia eteteko** (3); **erasoaldia gogortu** (3); **erasoaldia hasi** (4); **erasoaldia prestatzen** (3); **erasoaldia prestatzen ari** (3); **erasoaldian beste** (3); **erasoaldian parte** (4); **erasoaldiaren aurka** (3); **erasoaldiaren helburua** (5); **erasoaldiaren ondoren** (3); **erasoaldiaren ondorioz** (3); **erasoaldiari aurre** (3); **eta erasoaldiak** (5); **gaitzetsi zuen erasoaldia** (3); **hasitako erasoaldia** (3); **indarren erasoaldia** (3); **izan zen erasoaldia** (3); **kontrako erasoaldia** (6); **kontrako erasoaldia prestatzen** (3); **zen erasoaldia** (5); **zen erasoaldiaren** (4); **ziren erasoaldian** (3); **zuen erasoaldia** (9); **zuen erasoaldian** (5); **zuten erasoaldia** (9)

bi erasoalditan (3); **edo erasoaldiren** (3); **edo erasoaldiren bat** (3); **erasoaldiren bat** (4); **erasoaldiren bat sortu** (3); **estuasun edo erasoaldiren** (3)

---

erasobide *iz* erasotzeko bidea.

Gero, hor izango dira komunikabideen papera eta PPren **erasobide** bortitza, mugarik gabekoa, edo biktimen gaia. Berria - Euskal Herria

---

erasoezin *izond* ezin erasozkoa.

"Eta zenbat gerra-ontzi **erasoezin** ditugu kristau zerri horien bihotzak erdibitzeko?" galdetu zion Itsas Armada Beti Garaileko Imamari. Xabier Olarra

Beste horiez guztiez gain, arrazoia zera da, bere baliabide mugagabeek, bere posizio bakartuarekin batera, egoeraren jabe bihurtzen dituztela eta ia **erasoezin** beste edozein botereren edo botere guztien aldetik. Iñaki Mendiguren

---

erasogailu *iz* erasotzeko gailua.

Ba omen zen herri txiki bat bizilagun gutxikoa. Errege handi batek eraso omen zion, setiatu eta inguruan **erasogailu** handiak eraiki omen zituen. Elizen arteko biblia

---

erasogarri *iz* eraso daitekeena, erasotzeko modukoa.

Emakumeen ugalketa organoak bereziki **erasogarriak** dira birusarentzat. Berria - Gaiak

Emakumeen ernalkuntza organoak bereziki **erasogarriak** zaizkio birusari. Berria - Gaiak

Azalpen filosofiko oro puntu bakanetan beti ere **erasogarria** gerta daitekeen arren (ezin baita azalpen matematikoetan bezain korazaturik azaldu), sistemaren atal-egitura, aldiz, batasun gisa kontsideratuta ez dago inolaz ere arriskuan. Ibon Uribarri

---

erasogile *iz* eraso egiten duen pertsona.

Erasogileek dendaren erakusleihoa hautsi eta isurkari sukoia jaurti zuten. Berria - Euskal Herria

Erasogileak ofizialki demokraziaren aldeko borrokalaritzat jotzen bazituzten ere, «traidoreak» ziren alemaniarren gehiengoarentzat. Berria - Mundua

Ingusehetian gertatutako erasoei dagokienez, herrialde honetako Barne ministro karguan jarritako Beslan Kamkoievek iragarri zuen **erasogileetatik** bost atxilotuak izan direla. Berria - Mundua

Osama bin Laden musulman uahabia da, baita Irailaren 11ko **erasogile** gehienak ere. Berria - Mundua

---

erasoka *adlag* eraso eginez.

Lanpa-argiak erakarritako zomorroak ematen dute; haiek baino fidagaitzago jokatzen dute, hala ere, ezker-eskuin begiratzen baitute eta pauso laburrak ematen, inor **erasoka** hasiko zaien beldurrez bezala. Anjel Lertxundi

Hitzez **erasoka** hasi zitzaion aldamenekoari, aiurri ziurrenik ahula gaizki tolespetzen zuen harrokeriaz, Bide-lapur bat ikusi zuten mendian turkoei **erasoka**. Xabier Olarra

Filistearrak Keila hiriari **erasoka** ari dira eta larrainetako garia lapurtzen. Elizen arteko biblia

Irain egiten digute eta guk bedeinkatu; **erasoka** erabiltzen gaituzte eta guk jasan. Elizen arteko biblia

Hor zabiltzak gazte batzuk, baionetak prest, beste nazio batzuetako gazteei **erasoka** [...] elkar txandaka akabatzen, jadanik ez baitu balio lehen axola zuen ezerk. Xabier Olarra

Irisarrik biolina utzi zuen alboan, musika bazter batean utzirik uxatu nahi baitzuen **erasoka** zetorkion tristura. Felipe Juaristi

Zazpi ahalak egin zituen eulien antzera **erasoka** zebilzkion pentsamenduak baztertzen. Patxi Zubizarreta

Bata bestearen ondoan, iparraldean eta hegoaldean, etsaiaren konpainia berriak harresietara iristen ziren **erasoka**. Agustin Otsoa

Azken maldak igarota helmugara ari ziren iristen Landaluze eta Simeoni, eta **erasoka** malda horietan Jose Antonio Flecha espainiarra Rogers eta Peschelekin batera. Berria - Kirola

Eguraldia ezin txarragoa zen asteburuaren hasieratik, hogeita hamabost graduko bero sapa itogarria, hezetasunez eta argi itsugarriz **erasoka**. Oskar Arana

Orrialde apurtuak irteten ziren alde guztietara, liburuak indarka ari baitziren beren artean, borroka-neurketa sutsuetan elkarri haginka eta **erasoka**. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erasoka ari (6); **erasoka ari dira** (3); **erasoka eta** (5); **erasoka hasi** (7); **eta erasoka** (6)

---

erasokor *izond* erasotzeko joera duena. ik **oldarkor**. (pertsonak, taldeak eta abereak)

Jada ez duela balio garai batean bezala saltzeak, saltzaile **erasokorraren** garaiak joan direla. Jon Alonso

Mantxako jende hura **erasokorra**, bortitza, harroa izango zela uste zuen; ez, ordea: jende apala, atsegina, handiusterik gabea zen gehiena. Josu Zabaleta

Letoniaren aurka, talde **erasokorragoa**. Berria - Kirola

Zakurrek beldur hartu diote piztiari, ez dira hari aurre egiteko gai, ezta basurdetarako erabiltzen diren txakur temati **erasokorrak** ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gaizki heziz gero, berez mantsoa den zakurra **erasokor** eta lanjeros bihur liteke. Gotzon Garate

Arrakastatsu **erasokorra** den zibilizazioak ordaindu beharreko gizarte-prezioa bere atzerriko biktimen kultura exotikoa gizarte **erasotzailearen** barne-proletalgoaren bizi-lasterrera iragaztea izaten da. Iñaki Mendiguren

2 (bestelakoak)

Keinu lizun **erasokorrak** egin zizkion publikoari, adierazi nahian-edo, oraindik ere nahi beste indar bazuela beste edonori aurre egiteko. Josetxo Azkona

Oso joko fisikoa egiten du eta **erasokorra**. Berria - Kirola

Gatazka hauetatik ihesi joandakoek askotan muga itxiak, jarrera **erasokorrak** eta segurtasunik eza aurkitu dituzte erbestean. Berria - Harian

Alde on eta txarrak ikusten dizkiote EBri: «Alde ona da lan egiteko aukera gehiago egongo direla, baina bestalde, lan egiteko era **erasokorra** daukaten enpresa asko etorriko dira». Berria - Mundua

Daniarrak sistema **erasokorra** atera zuten, 4-3-3, baina pase luzeetan baino ez zuten lortu Cechen atera gerturatzea. Berria - Kirola

Gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzeko helburuarekin, ekintza sindikal **erasokorra** egiteko baldintzak badaudela uste du LAB sindikatuak. Berria - Ekonomia

Atxiloketa gertatzen denean, aztarnak epailearen esku geratzen dira; norbaitek errugabea dela frogatu ahal izateko, errudun jotzen dute lehenengo: honi auzi **erasokorra** egitea esaten zaio. Juan Martin Elexpuru

Bertan, erretzaileek lasai demonio erre dezakete, ingurukoen begirada **erasokorrik** nozitu beharrik izan gabe, bezero guztiak haietarikoak direlako. Harkaitz Cano

Gero eta doinu probokatzaileagoa, **erasokorragoa**, mehatxukorragoa. *Suicide* taldearekin, punk elektronikoaren hazia erein zuen, eta 70eko hamarkadako New York erreboltarian, sintetizadoreekin ere musika **erasokor** eta probokatzailea egin zitekeela erakutsi zuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Araudia beharrezkoa da, beraz, EB-IUren ustez, «errauste plantak, Euskal Y-a eta antzeko proiektu **erasokorrak**» galarazteko. Berria - Euskal Herria

Zibilizazio **erasokor** baten ohiko armak. Iñaki Mendiguren

Berak, neurri handi batez urezkoa zela jakingo balu bezala, ura maite zuen, itsasoko ur geldigaitz, **erasokor**, olatuen hazilaria. Felipe Juaristi

Mendebaldeko Kristandadeak bere energia **erasokorrak** ipar-ekialdeko mugara bideratu zituen orain. Iñaki Mendiguren

Ann Marie Rogers emakumeak bularreko minbizi **erasokorra** du, baina Herceptin botikaren bidezko tratamendua ukatu dio osasun zerbitzuak, oso garestia dela argudiatuta. Berria - Gaiak

Elkartasuna adierazi nahi diegu, bai Nafarroan euskararen kontrako politika **erasokorra** jasaiten duten gizarteko sail desberdineri. Herria

Agerkariek ikerketa kazetaritza **erasokorragoa** egiten hasi dira, irakurleen interesa bereganatzeko. Berria - Gaiak

Hegazti gripearen birusik latzena da, oso **erasokorra**, eta mundu osoan zabaltzen ari da. Berria - Gaiak

Mila hegazti inguru hilda azaldu dira Israel hegoaldeko bi etxaldetan, baina osasun agintarien arabera, ez ditu gripearen birus aldaerarik **erasokorrenak** hil. Berria - Gaiak

Ez zen, pentsatuko duzun bezala, irakurle, salaketa zuzen **erasokor** bat izan, jokaera sotil bat baizik. Karlos Linazasoro

Halako setakeria bortitz eta **erasokor** batez egiten zien aurre aitari eta anaia nagusiari. Josu Zabaleta

Neure jenio **erasokorrak** bultzaturik, eskueran zegoen edozer jaurtitzen nuen, amorratuz gero. Xabier Olarra

3 (adizlagun gisa)

Peppone **erasokor** hurbildu zitzaion. Koldo Biguri

Otsoak kamerarantz **erasokor** mugitzen dira eta hala amaitzen da iragarkia. Berria - Mundua

-Hau ez da Fakultateko panfletotxoa, hau moda-aldizkari bat da - **erasokor** orain Jefea-. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, hara non, ni zoriontasunean nengoela, zorigaitza, **erasokor**, inguruka zebilkidan. Patxi Zubizarreta

Besarkatu nuenean, bere bularrak **erasokor** sumatu nituen elastikoaren pean. Harkaitz Cano

Hegoafrikak oso **erasokor** jokatu zuen. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askoz ere erasokorragoa (3); **erasokor eta** (9); **erasokorra da** (3); **erasokorra den** (4); **erasokorra eta** (4); **erasokorragoa da** (3); **erasokorrak dira** (4); **erasokorrak eta** (5); **ere erasokorragoa** (3); **eta erasokor** (4); **eta erasokorra** (5); **jarrera erasokorra** (15); **jarrera erasokorrak** (3); **joko erasokorra** (3); **talde erasokorra** (6); **talde erasokorragoa** (3)

---

erasokorki *adlag* era erasokorrean.

Zibilizazioen arteko topaketetan, alderdi erasotuak **erasokorki** erradiaktiboa den kulturaren elementu aitzindari bakar bati ere bere gizarte-gorputzean kokatzea eragozten ez badio, irauteko aukera bakarra iraultza psikologikoa egitea du. Iñaki Mendiguren

Atzerriko gizarte-gorputz batean sartzen arrakasta izan duen zibilizazio **erasokorki** erradioaktibo baten ordezkariek fariseuaren *hybris*-ari amore emateko joera dute, honek Jainkoari eskerrak ematen dizkiolarik ez delako besteak bezalakoa. Iñaki Mendiguren

---

erasokortasun *iz* erasokorra denaren nolakotasuna.

Abiadura, defentsa hausteko gaitasuna, jokaldiak amaitzeko ahalmena eta **erasokortasuna** du. Berria - Kirola

Zein eskubidez itxoiten dugu, bada, buru-eskasiaz, desiraz, grinaz eta **erasokortasunez** betetako mundu honengandik bestelako zerbait? Xabier Olarra

Erakutsi duguna baino kontzentrazio eta **erasokortasun** handiagoa behar genuen partida irabazi ahal izateko. Berria - Kirola

Kulturan gora egin ahala **erasokortasun** fisikoa lekuz kanpokoa iruditzen zaigun neurrian, haren ordezko intelektuala bihurtzen dela zinismoa. Berria - Kultura

Bi aldeen arteko **erasokortasun** egoera ofizialki amaitu nahi du Pekinek, baita bi aldeen arteko harremanen garapena zehaztu ere. Berria - Harian

---

erasolari *iz* eraso egiten duen pertsona.

Erasolariak izan dira nagusi bi ekipoetan ere. Herria

---

erasotar *izlag/iz* Nafarroko Erasokoa, Erasori dagokiona; Erasoko biztanlea.

Pedro Isunza Araban jaiotako ugazabak edo harekin lan egiten zuten herrikideak kontatuta, edota **Erasotarren** eskutik. Berria - Kultura

---

erasotu[1] **1** *izond* erasoa jasan duena.

Berdintasun-Planean, emakume **erasotuentzako** zerbitzuen ebaluaketaren beharra azpimarratu eta informazioa eta laguntzarako doako telefonoa ipintzea jasotzen da. Berria - Euskal Herria

Egun, euskal herritar guziak laborari **erasotuak** senditzen gara! Berria - Harian

Fededun **erasotuaren** oihua. Elizen arteko biblia

Jainkozale atsekabetu eta **erasotuaren** otoitz larria. Elizen arteko biblia

Erasotzailearen inpaktuaren ondorioa gorputz **erasotuan** arrakastaz sartzea izan baita erasotzailearen kultur irradiazioaren bidez. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio **erasotu** batek izan ditzakeen erreakzio-mota alternatiboak. Iñaki Mendiguren

Kultur elementu bakartu batek gizarte **erasotu** baten bizitzan sartzen arrakasta izan duenean, ondoren jatorri bereko beste elementu batzuk eraman ohi dituela aurkituko dugu. Iñaki Mendiguren

Eraso arrakastatsuaren ondorioak alde **erasotuaren** gizarte-gorputzean konplexuagoak izaten dira, baina ez hobeak. Iñaki Mendiguren

Berorrek karabineroen buruari idatziz pasatu zion bertsioa ez datorrela bat alderdikide **erasotuek** federazioari emandakoarekin. Koldo Biguri

Igoera txikiak, teknotxerritxo **erasotuen** salbuespenarekin. Berria - Ekonomia

Askotan Jainkoak ontzat ematen du gizakia **erasotua** gerta dadin, bekaturako isuria dela sentitzeak damaion gaitzagatik. Joan Mari Lekuona

2 (izen gisa)

Eraso eta **erasotu** guztiak berdinak ez direlako, erantzun eta elkartasun ekimen ezberdinak antolatzeko beharra dago. Berria - Euskal Herria

-Halere zuk ezingo duzu hori gurekin batera ikusi, Neuhäusl jauna -defendatu zen **erasotua**, ugazabaren mehatxua zakar aipatuz-. Anton Garikano

Zorionekoak zuzenagatik **erasotuak**. Joan Mari Lekuona

Gainera, gezurtatu egin zuen AEBen argudioa, hots, **erasotuak** «atzerriko borrokalariak» zirela. Berria - Mundua

Erasotuak erasotzaile bihurtu nahian. Berria - Euskal Herria

Komenigarria izango da, berriro, "eragile" eta "erreaktibo", erasotzaile eta **erasotuaren** paper antitetikoak jokatzen dituztenengan izandako ondorioak aparte aztertzea. Iñaki Mendiguren

---

erasotu[2] ik **eraso**[1].

---

erasotzaile *(596 agerraldi, 57 liburu eta 271 artikulutan; ETCn 7.008 agerraldi)* **1** *izond/iz* erasotzen duena.

Ikus bedi behialako egun hartan ez zela harri bat gehiago jaurti emakume errukarriaren aurka, Jesusek hitz fatalak esan eta esku **erasotzaile** guztiak gelditzea. Jon Alonso

Limes-a ez zen izan zibilizazioaren gordeleku bakarrik, baita probidentziazko salbagailu ere barbaro **erasotzailearentzat** berarentzat, bere baitan zituen indar demoniakoki autosuntsitzaileen aurka. Iñaki Mendiguren

Era berean, jakinarazi zuten ez dutela «funtzionario **erasotzailerik**» onartuko euskal presoak diren moduluetan. Berria - Euskal Herria

Arrakastatsu erasokorra den zibilizazioak ordaindu beharreko gizarte-prezioa bere atzerriko biktimen kultura exotikoa gizarte **erasotzailearen** barne-proletalgoaren bizi-lasterrera iragaztea izaten da. litekeenagoa da lehen akusazioan jende askok gezurra esatea, errazagoa baita ezjakintasunak eragindako lilura edo gorroto **erasotzailea** gizon askorengan elkartzea. Iñaki Mendiguren

Berdin ikus dezakegu inbasore (nazien nazionalismo **erasotzailea**) zein morroi (Petain-en nazionalismo errenditua). Berria - Kultura

Informazio prozesua beharko lukeeena auzibide **erasotzaile** bihurtzen da, eta epailea, auzipetuaren etsai. Berria - Harian

Askotan, gainera, babestu ere egiten ditu erasoak eta **erasotzaileak**. Berria - Gaiak

Lege hauek txartu egiten dute erasotuen egoera eta hobetu **erasotzaileena**. Juan Martin Elexpuru

Nazka eman zidan haren tonu **erasotzaileak**, eta bekoz beko begiratu nion, errespetua eskatuz bezala, tinko, eskolan ikasleekin egiten dudan bezalaxe. Karlos Linazasoro

Beste soldadu batzuek **erasotzaileak** hil zituzten geroxeago. Berria - Mundua

Hura ikusi orduko, beldurra nagusitu zen guztiengan, defendatzaileengan zein **erasotzaileengan**. Agustin Otsoa

Gizonezkoek emakumeen **erasotzaile** izaten ikasten dute. Berria - Euskal Herria

Gurasoek nahiago izan dute haien seme-alabak **erasotzaile** izatea biktima izatea baino. Berria - Euskal Herria

Ordurako Mendebaldeko **erasotzaileek** ia galduak zituzten Sirian beren aitzindari-postu babesgabe guztiak. Iñaki Mendiguren

Asteburuan ustez Al Kaedako **erasotzaileek** Saudi Arabiako Khobar herrian petrolio konpainietako 47 langile bahitu eta horietako 22 erahil ostean, merkatuetan ezinegon handia espero zen. Berria - Ekonomia

Bere **erasotzaileari** ere barkatu zion, girixtino guzien eginbidea segituz funtsean. Herria

Erasotzaileari bere armekin aurre egiten ikastea. Iñaki Mendiguren

Barbaroak, bere erretiradan, maniobra-eremu mugagabea ireki duenean [...] lerro batera iristen da, non zibilizazio erasokorraren nagusitasun militarra neutralizatu egiten duen **erasotzailearen** operazio-basetik frontera dagoen tarte oso luzearen eragozpenak. Iñaki Mendiguren

Erasotzaileek gordelekuetatik irten eta putzua inguratu zuten, armak prest zeuzkatela. Joanes Urkixo

Ohorea galtzeraino bortxatua izateko arriskuan dagoen gizonak edo emakumeak, ahal badu, erasoaldia jasan aurretik **erasotzailea** hiltzea baimentzen duen araua. Imanol Unzurrunzaga

Horrek **erasotzailea** harrotu egiten du, eta emakumea etsipenak jota uzten du. Berria - Harian

Topaketa bakoitzean **erasotzaile** bat izaten dela alde batean eta erasoaren biktima bat beste aldean. Iñaki Mendiguren

Poliziak hasieratik zekien **erasotzaileak** muturreko islamistak zirela, eta ez, Gobernuak esan bezala, ETAko kideak. Berria - Mundua

Lehen okasioan **erasotzailea** Espainia zen, Espainiar Armada, 1588; bigarren okasioan, Luis XIV.aren Frantzia, Blenheim, 1704; hirugarren okasioan, Iraultzaren eta Napoleonen Frantzia, Waterloo, 1815. Iñaki Mendiguren

2 (adizlagun gisa)

-Zer hasi zen, ba, Talesen erorikoarekin? -galdetu zion, **erasotzaile**. Jon Muñoz

Ez nion **erasotzaile**, ez iraingarri, ez bortxaz begiratu, ez eta inondik ere. Edorta Jimenez

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ibaika heldutakoen hira, kantua eta gangarra ustezko **erasotzaile** oilartuaren kontra. **Erasotzaile** suizida bilakatzea pentsatuko nuke neronek. Iñigo Aranbarri

Erasotzaile musulmanak artean lehorrean Rivieratik barrura bultzaka eta Alpeetako igarobideak betetzen ari ziren. Iñaki Mendiguren

Beren harrapatze-helburuetarako aprobetxatzea lortu duten **erasotzaile** barbaro edo atzerritarrek eskuraturiko onurak nabariak dira eta, ikuspegi laburraz, ikaragarriak. Iñaki Mendiguren

Mazedoniar eta erromatar **erasotzaile** militarren lehen helburua biktimen ustiatze ekonomikoa zen. Iñaki Mendiguren

Bardet jokalaria du **erasotzailerik** onena, baina 30 postuan da. Berria - Kirola

Bardet jokalaria du **erasotzailerik** onena. Berria - Kirola

Begira, babiloniarrek eginak dituzte erasorako bideak, eta laster eroriko da Jerusalem **erasotzaileen** esku. Elizen arteko biblia

Sizilian jaioek, ahal zuten guztia egin zutelarik armen bidezko greziar konkistari aurre egiteko, aldi berean beren borondatez onartu zituzten greziar **erasotzaileen** hizkuntza, erlijioa eta artea. Iñaki Mendiguren

Erantzun konplitua eman nion, gure ustezko **erasotzaileen** kopuruari zegozkionak hanpatuta. Aingeru Epaltza

Oraindik ez dute inor atxilotu, **erasotzaileak** ertzainak iritsi baino lehenago alde egin baitzuen. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan)

Erasotzaile taldea ere ezbaian gelditu zen, eta beraietako batek makurtu eta gonbito larria egiten zuela ikusi zuen Fionnek. Joanes Urkixo

· Gehiago direla gaueko lapurrak edo karabana **erasotzaileak** araupeko soldaduak baino. Karlos Zabala

Itsas **erasotzaile** mekanizatu gabe haiek, gogaikarriak gerta bazitezkeen ere, ez ziren konkistatzaile potentzialak. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da erasotzailea (3); **dute erasotzaileek** (3); **erasotzaile bat** (5); **erasotzaile eta** (4); **erasotzaile eta polizia** (3); **erasotzaile suizida** (5); **erasotzailea atxilotu** (6); **erasotzailea atxilotu dute** (3); **erasotzailea eta** (6); **erasotzailea ez** (4); **erasotzaileak bere** (4); **erasotzaileak ere** (4); **erasotzaileak eta** (7); **erasotzaileak ez** (3); **erasotzaileak ihes** (6); **erasotzaileak ihes egin** (5); **erasotzailearen aurkako** (5); **erasotzailearen bila** (4); **erasotzaileen artean** (3); **erasotzaileen aurka** (4); **erasotzaileen eta** (6); **eta erasotzailea** (6); **eta erasotzaileak** (8); **eta erasotzaileek** (4); **eta ustezko erasotzailea** (4); **gizonaren ustezko erasotzailea** (3); **haien erasotzaileak** (3); **hiru erasotzaile** (5); **hiru erasotzaile eta** (3); **hiru erasotzaileak** (3); **tiroketetan hiru erasotzaile** (3); **ustezko erasotzailea** (28); **ustezko erasotzailea atxilotu** (5); **ustezko erasotzaileak** (14); **ustezko erasotzaileak ihes** (3); **ustezko erasotzailearen** (3); **ustezko erasotzaileari** (3); **ustezko erasotzaileekin** (3); **ustezko erasotzaileen** (3); **zituzten erasotzaileek** (3); **zuen erasotzailea** (3); **zuen erasotzaileak** (3); **zuten erasotzaileek** (5); **zuten ustezko erasotzailea** (5)

erasotze *iz* eraso egitea.

Erasotze honek zer esan nahi duen ulertzea osasungarri da, San Paulok dioenez: "Jainkoaren izpirituak gidatzen (ehizatzen) dituenak Jainkoaren seme-alabak dira". Joan Mari Lekuona

erasozale *izond* erasoen zalea.

Erasozalea baino gehiago, eutsizalea baita usurbildarra. Berria - Kirola

Indar berriek, gartsu eta **erasozale**, bazaukatek ni ezereztatzea, nire bizitza eta askatasuna desegitea. Xabier Olarra

Bere hirugarren urtean, suntsitzaile eta **erasozale** bihurtu zen. Xabier Olarra

erasozko *izlag* erasoren bidezkoa.

Zentzu horretan, kanpoko ekonomiari dagokionez, Listen nazionalismo ekonomikoa defentsiboa da **erasozkoa** baino areago. Koro Navarro

Konturatu nintzen hasia zela Honeyri kasu egiten, hari modu ez hain zuhur eta **erasozkoan** hitz egiten, baina zer esan nahi zuen horrek? Oskar Arana

-Baina gertaerak bai -ohartarazi zion inudeak, tonu zorrotz ia **erasozko** batean. Xabier Olarra

Dapex-Volcanex izena du operazioak, eta bi zati izanen ditu: lehenengoa defentsazkotzat jo dute, eta, bigarrena, berriz, **erasozkotzat**. Berria - Euskal Herria

eraspen *iz* jaiera, debozioa; joera, grina.

Ohartu behar da guk egitezko pobreziari **eraspena** edo gorrotoa sentitzen diogunean [...] neurrigabeko **eraspen** hori itzaltzeko on dela hitzaurreetan eskatzea (haragiaren kontra izanik ere) Jaunak aukera dezan egitezko pobrezian. Patxi Altuna

Eta horrenbestez gehiago mugitu **eraspenak** borondatez. Patxi Altuna

Lehen bikoteak nahi luke beretu duen gauzari dion **eraspena** kendu, Jainko gure Jaunarekin onezkoak egiteko eta salbatu ahal izateko. Patxi Altuna

Anai Eliasek **eraspen** handiz eta negar-malkoz esaten zuen hau. Askoren artean

Anai Joanek begirune handiz heldu eta hainbeste malkoz busti zion, ezen Magdalena berri bat baitzirudien benetan, eta honela esaten zuen **eraspenez**: [...]. Askoren artean

eratasun *iz* moduzkotasuna.

Baina birjina haien **eratasunak** ez zion negarrari gainezka egiten utzi. Askoren artean

Bere horretan iraun eta tinko eusten diona zerbait da, hala nola bertutea beti bat baita, eta beronen atal nagusiak eta dotoreenak **eratasuna** eta neurribidea dira. Imanol Unzurrunzaga

Emakumeei gizonezkoei eskatzen ez zaien **eratasun** - eta kontinentzi maila eskatu diete, lotsaren hausketak bertute guztiak ukatzea esan nahi duelako emakumeengan. Iñaki Iñurrieta

eratorbide *iz* eratortzeko bidea.

Kate bati formaldatze bat ezartzeko, katearen **eratorbideari** buruzko zerbait jakin behar dugu; baina formaldatzaileak ez diren erregelak ezartzeko, nahikoa da erregela ezartzen zaion katearen forma ezagutzea. Itziar Laka

(70i) muin-perpausa da, bere **"eratorbidean"** beharrezko formaldatzeak agertzen direlako bakarrik. Itziar Laka

eratorketa *iz* eratortzea. ik **eratorpen**.

eratorki *iz*

300 metro karratutan aterbetzen ditu hiru salgai mota: jantziak, Skate kiroleko gaiak eta **eratorkiak** (produits dérivés). Herria

eratorpen *iz* eratortzea. ik **eratorketa**.

Eratorpen bi kidekoak direla esango dugu, (15) ereduko diagrama bera sortzen badute. Itziar Laka

(29) erregela **eratorpen** guztiei ezarri behar zaie, edo ondorioa ez da perpausa izango. Itziar Laka

Horiek guztiek ezaugarri komun bat dute: beren egitura gramatikalaren sorkuntzan aurrera egiteko, "euren **eratorpenaren** ibilbidea" (27. or) ezagutu beharra dago. Itziar Laka

Honako **eratorpenak** gertatu direlarik: *aita aca > ata, ditut dicut > ditut.* *Lourdes Oñederra*

Aurkezpen oinarrizkoaren bermoldaketez eta horiek dakarten **eratorpenaren** berrantolaketaz. Lourdes Oñederra

Zientzia deitzen dioguna ez da sortzen teknikoki [...] baizik arkitektonikoki, kidetasunagatik eta osokia lehen-lehenik ahalbidetzen duen barneko helburu goren bakarraren **eratorpenagatik**. Ibon Uribarri

Beheraka zabaldu nahi dituzte katearen bukaeran tarteko ondasunen eta hornigaien eskaintza merkea edukitzeak eragiten dituen **eratorpenezko** efektuak. Koro Navarro

Eratorpen fonologikoaren ikusmoldea aldatu duten eskola berrietan silabaren sorlekuaren inguruko eztabaida ez da sortu ere egiten askotan. Lourdes Oñederra

Nahiz eta fonologialariaren analisiak erakusten duen **eratorpena** fonologikoa dela, hemen hiztunen erabilera sinkronikoaz ari gara. osagai-egiturari buruzko argibideak behar ditu (hots, **eratorpenean** egindako urratsei buruzkoak), eta egin beharreko lekualdaketa ezin dugu inola ere adierazi osagai-egituraren terminoetan. Lourdes Oñederra

Esaten denean frantsesezko *pommier* hitza *pomme*-tik datorrela, gramatika **eratorpeneko** kasu bat ari gara aipatzen. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eratorpen bat (3); **eratorpen fonologikoaren** (3); **eratorpenean egindako** (3)

eratorrarazi, etorraraz, etorrarazten du *ad* etortzera behartu.

Jarraian, **eratorrarazi** duzun guztia ongi justifikatu. Askoren artean

eratorri, erator, eratortzen **1** adieratzten den zeran jatorria izan. du *ad*

Gantza, berriz, animalien ehunetatik **eratorria** izaten da gehiena; bada parte txiki bat landareetatik **eratorria** (kakahuete eta olibetatik, besteak beste). Irene Aldasoro

Sapere (jakin) hitzetik *sapientia* (jakituria) datorren modu berean, *esse* (izan) hitzetik *essentia* (esentzia) **eratorri** da. Imanol Unzurrunzaga

Denborarekin, *gas* hitzetik **eratorri** ugari sortu ziren: *gasolina, gasolio, gasogeno...* besteak beste. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nekeza dela teoria zertzea, ondorio orokorrak ateratzea eta baita inplikazio guztiak **eratortzea** ere. Xabier Arregi

Udalerriko botere guztiak agintaritza nagusiaren baimenetik **eratortzen** dira. Berria - Mundua

Ondorio desberdinak ziren, printzipio desberdinetatik **eratortzen** zirelako. Iñaki Iñurrieta

(115i) perpausa (116) katetik **eratortzen** da, nahitaezko formaldatzeak bakarrik ezarriaz; beraz, muin-perpausa dugu definizioz. Itziar Laka

Lege batetik **eratortzen** den prebentzio-ahalmena ez dago bere gogortasunean, legea gauzatuko den ziurtasunean baizik. Juan Martin Elexpuru

Gaia, XVIII. mendeko gramatikan jatorrizko hizkuntza bat izango zen, eta honetatik **eratorriko** lirateke gainerako hizkuntza guztiak eta hauek euren baitan eroango lukete haren oroitzapena. Xabier Arregi

Premiak bultzatuta esperientziatik **eratorri** zituen adigai horiek. Ibon Uribarri

Ordura artean, «kubismotik **eratorritako** joerak» ziren abangoardiaren ordezkari: eskulturan, Oteiza eta Txillida; pinturan, Saura, Miralles, Tapies. Berria - Kultura

Hizkuntzaren Filosofian, hizkuntzaren izaera argitzeko aztertzen da hizkuntza, eta ez beste eremuetatik **eratorritako** interesak direla medio. Askoren artean

Oinarri-esakune geometriko guztiak, adibidez, "hiruki batean bi alde batera hirugarrena baino handiago dira", ez dira lerroaren eta hirukiaren adigai orokorretatik **eratortzen**, begiespenetik baizik, eta gainera a priori ziurtasun apodiktikoarekin **eratortzen** dira. Ibon Uribarri

Muinean pasiboak gorde ote litezkeen galdetzen dugu, perpaus aktiboak "aktiboaren" formaldatze baten bitartez **eratorriaz**. Itziar Laka

2 (era burutua izenondo gisa)

Teoria batek gertaldiak izaki **eratorriak** direla aldarrikatzen du. Askoren artean

Bankuek produktu **eratorrien** merkatuetan duten esku-hartze gero eta handiagoak. Koro Navarro

Hitz elkartuak eta **eratorriak** sortzeko erraztasun handia. Isabel Arrigain

Sistemaren xehetasunari gainera adigai **eratorririk** ez faltatzea ere badagokio. Ibon Uribarri

Teologia eta Morala izan ziren ondoren beti jorratu diren arrazoimenaren ikerketa **eratorri** ororen eragileak edo, hobeto, harreman-guneak. Ibon Uribarri

3 (era burutua izen gisa)

Urearen **eratorri** bat zela eta bazuela zerikusiren bat azido urikoarekin. Juan Garzia

Polietilenoaren kasuan errepikatzen den unitatea etilenoaren **eratorria** denez, hortik bere izena. Berria - Gaiak

Gaur egun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan baliagarri dauden energiaren %51 petrolioaren **eratorriek** sortutakoa da. Berria - Ekonomia

Garai batean monarkak agintzen zuen, hitzaren **eratorriek** frogatzen dutenez eta zenbaitek ikasi ahal izan dutenez. Xabier Olarra

Guk hemen "hitza" bera, eta horren **eratorria**, "hizkuntza", dugu erabiliko. Piarres Xarriton

Hau da, ez dakit Durangoko toponimian bildu hitzaren **eratorririk** ba ote den ala ez. Koldo Zuazo

Bestalde, *d-mût-i* dagokionez, berori *-d-m-h* (--='-ren antza izan') -ren **eratorria** da eta berorrek ere ideia batekiko antza adierazten du. Xabier Kintana

Petrolioaren **eratorri** astunak. Berria - Gaiak

Izan ere, nabilonak, TCHaren **eratorri** sintetikoak, kimioterapiak eragindako gorakoa gutxitzen du. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batetik eratorria (4); **batetik eratortzen** (4); **bertatik eratortzen** (4); **bertatik eratortzen diren** (3); **erator daitekeen** (3); **erator daitezke** (3); **erator daitezkeen** (3); **eratorri ahal** (4); **eratorri beharko** (4); **eratorri da** (3); **eratorria da** (11); **eratorria den** (4); **eratorria ez** (5); **eratorria izan** (3); **eratorririko izena** (3); **eratorritako hitzak** (3); **eratortzen baitira** (3); **eratortzen da** (5); **eratortzen den** (7); **eratortzen dira** (9); **eratortzen diren** (12); **eratortzen dugu** (5); **esperientziatik eratorri** (5); **eta bertatik eratortzen** (3); **hitzetik eratorria** (5); **izen eratorri** (3); **katetik eratortzen** (3); **produktu eratorrien** (5); **produktu eratorrien merkatuetan** (3); **tik eratorria** (3); **tik eratorria da** (3)

---

eratortze *iz* adierazten den zeran jatorria izatea.

Eratortze hori zuzena bada, basileus parean jartzen du kral hitzarekin, honek "errege" esan nahi duelarik hainbat eslaviar hizkuntzatan. Iñaki Mendiguren

---

eratsiki ik **eratxiki**.

---

eratsu **1** *izond* egokia.

Gizon garaiak, lepo-luzeak, asperdurazko begitarte ilunekoak; eta emakume **eratsuak**, ia denak beltzez jantziak, elkarrizketei, deiadarrei eta mahai gaineko edariei sorgor. Jose Morales

Gizon jator, **eratsu** eta atsegina, hizkera egokikoa, haurtzarotik onbide guztietan jarduna. Elizen arteko biblia

Nini arina zen, Eligio ero hutsa: baina une hartan itxura **eratsua** zuten biek, harroa ia. Josu Zabaleta

Gizatzar ile-gorri bat zen, bizar-gorria, oso handia, halako Herkules baketsu, **eratsu** bat. Josu Zabaleta

Jende ongi hezi eta **eratsua** bizi den edozein etxetan bezala. Jose Morales

Denak, ikuskizunaz gozatu nahian, gogotsu bildu zitzaizkion Lajosi inguruan; Endre ere bai, hain **eratsua** izan ohi zena, hark ere ezin izan baitzion eutsi jakin-minari. Ander Irizar

Besarkada garbiak ziren han, sentimendu eztiak, musu santuak, elkarrizketa gozoak, barre **eratsuak**, aurpegi alaiak. Askoren artean

Nolako haserre bat-batekoek zimurtzen zizkioten bekokiko izur **eratsuak** eta nolako suaz liskartzen zen aitarekin. Jose Morales

Pauso bakoitzak Londresera hurbilagotzen zuen, gustu artistikorik gabeko bere bizimodu **eratsutik** urrunago. Irene Aldasoro

Berriro ibili zen estu, berriro jakin zuen bizimodu gaitzaren berri, berriro mugatu zen premiazkoenera soilik, araztasuna eta bizilege **eratsua** utzi eta berriro amildu zen lohikeriara eta bizitza zantarrera. Jose Morales

Horrela egin zuen lo ordu bat eta bi, ahoz gora, lo gelditu aurretik hartu zuen jarrera **eratsuan**, eskuineko eskua giltza eta errebolberra gorderik zeuzkan poltsikoan sarturik. Jose Morales

Zail da onartzen: hildakoek eta elikagaiek ez dituzte errespetuzko sentimendu samur **eratsuak** baizik sortzen. Joxan Elosegi

Izan daitezela gozo, baketsu eta **eratsu**, otzan eta apal, denekin oneski hitz eginez, egoki den bezala. Askoren artean

Harengana joan nintzen bada, garagardoa eramatera, nazka **eratsu** batez. Joxan Elosegi

2 (adizlagun gisa)

Emakumeei dagokienez, dabiltzala egoki jantzita, lotsaz eta **eratsu** atondurik. Elizen arteko biblia

Zigarreta hartu zuenean, alaitasunez ohartu zen Liubaren atorra **eratsu** zegoela berriro, eta azkenean ondo konponduko zirelako itxaropena piztu zitzaion. Jose Morales

Bizkarra tente zutela zeuden eserita, aldare nagusiaren gainean zintzilik zegoen argi-nota gorri urrunari begira, **eratsu**. Irene Aldasoro

---

eratu, era, eratzen **1** du *ad* era eman; multzo bati, zatiak antolatuz, izatasuna eman; era jakin bat emanez itxuratu, multzo baten osagai gisa sartu. ik **formatu**[1]**; moldatu; antolatu; prestatu**.

Aminoazido-nahastura bat da kolagenoa, eta hezurrak egosten direnean lortzen den kola **eratzen** du. Irene Aldasoro

Organismo baten osagaiak ez dira bereizita eraikitzen ondoren organismoa oso-osorik **eratu** ahal izateko, erlojuaren kasuan gertatzen den bezala, biziduna eta bere osagaiak garapeneko elkarrekintzen emaitza baitira. Askoren artean

Itxura denez, aski goiz agertu da bizia -Lurra **eratu** eta handik mila milioi urtera baino lehenago, ziurrenik-, "protobakterio" dei lekiokeen zer baten itxurapean. Juan Garzia

Kristau Elizaren lurralde-antolaketa hori ez zuen inongo enperadorek sortu; Elizak berak **eratu** zuen. Iñaki Mendiguren

Bi kuia ilarak barrikada bat **eratu** eta Rambuteau kalearen sarbidea trabatzen zuten. Karlos Zabala

Ihiak eta kanaberak ziren batik bat, sare korapilatsua **eratzen** zutenak, zulatu ezineko bilbea. Karlos Zabala

Egitura **eratzen** duten gaietan, hezurra da interesgarrienetariko bat ingeniariarentzat, indarraren eta pisuaren artean egiten duen hautsimautsi onagatik. haien zabaleran itzelezko egitura gardenek euskarri hartu eta areto ikaragarriak **eratzen** zituzten,. Irene Aldasoro

Han **eratutako** koloniak antzinako kolonietan adibide gutxi dituen mendekotasun-mota batekoak dira. Iñaki Iñurrieta

Zelula bizi bakunez **eratutako** geruza gutxi batzuk osatzen dute epidermisa. Irene Aldasoro

Irudia **eratzeko** lente bat (objektiboa). Irene Aldasoro

Horrexek guztiak **eratu** zuen Erdi Aroko pentsaeraren hurbileko testuingurua. Askoren artean

Gauza bera esan daiteke, neurri txikiagoan bada ere, 2. Erregela-z: testua Frantziskok **eratu** zuen, anai talde txiki batekin elkarlanean. Askoren artean

Erresuma Batuko zenbait idazlek, artistak eta zientzialarik osatu zuten Bloomsbury taldea **eratu** zuen; besteak beste, Edward Morgan Forster, William Somerset Maugham eta Duncan Grant idazleak aritu ziren Woolfek sortutako taldean. Berria - Kultura

Batzorde bat **eratu** zuten Estatuarentzat berebiziko garrantzia zuen eraikin handi bat eraikitzeko. Jose Morales

Gudarostea **eraturik**, haserre eta amorruz, bekatarien eta legegabekoen kontra oldartu ziren. Elizen arteko biblia

Honela **eratua** zegoen, beraz, santutegia. Elizen arteko biblia

Kutxa bere toki berezian ezarri zutenean, kantari-taldea **eratu** zuen Davidek Jaunaren etxerako. Elizen arteko biblia

Idazle handi bati eta latinaren eta garaiko literatura-arauen ezagutzaile on bati dagokion trebetasunez, Zelanoko Tomasek biografia bizi eta aberatsa **eratu** du. Askoren artean

Beste ertzean, bidegurutze bat, Abbesses eta Orchampt kaleek **eratua**. Jon Muñoz

Benetako kristauek ez luketela **eratuko** iraungo lukeen estaturik. Iñaki Iñurrieta

Infekzioa hautemateko eta azkar esku-hartzeko sareak **eratzea**. Berria - Gaiak

Zorionez, ibilaldien arteko lotura, oroitzapen eta ametsen zubiak **eratzen** dit hutsarteen gainetik! Piarres Aintziart

2 (gauza abstraktuez)

Guretzat nagusi den sisteman, berriz, XV. mendearen hasieraz geroztik perspectiva artificialis-arekin mendebaldeko pinturan nagusitu den sisteman, alegia, gizakiaren begian **eratzen** den perspektiba naturala kopiatu nahi izan da. Josu Zabaleta

Ia oharkabean, hipotesia **eratzen** hasi zaio. Iñaki Iñurrieta

Zailtasunak zailtasun, ekonomilariek teoriak eta ereduak **eratzen** dituzte ekonomia gertaerak aztertu, azaldu edo aurreikusi ahal izateko. Iñaki Heras

Guretzat nagusi den sisteman, berriz, XV. mendearen hasieraz geroztik perspectiva artificialis-arekin mendebaldeko pinturan nagusitu den sisteman, alegia, gizakiaren begian **eratzen** den perspektiba naturala kopiatu nahi izan da. Josu Zabaleta

Hark **eratu** zuen trigonometria matematikaren alor autonomo gisa. Jon Muñoz

Perpaus modu horiek, batasun itxian, periodoa **eratuz**, osatzen dute elkar. Patziku Perurena

Irudia **eratzeko** lente bat (objektiboa). Irene Aldasoro

Era guztietako adierazleen joko batez etengabe **eratuz** doan prozesu batean baizik ez da existitzen subjektua. Josu Zabaleta

Horrexek guztiak **eratu** zuen Erdi Aroko pentsaeraren hurbileko testuingurua. Askoren artean

Ingelesezko hiztuna berehala ohartzen da (1) perpausa ingelesaren gramatikako lege sintaktikoen arabera **eratuta** dagoela. Itziar Laka

Erabil dezagun zentzu ia ezin atxikizkoa duten izen, aditz, adjektibo gutxiago, baina erabil dezagun esaldi mota gehiago, modu gehiagotan **eratuak**, senez ebakiak. Josu Zabaleta

XVIII. mendean ideia eboluzionista espezieen arteko ahaidego baten bidez formulatzen zen, hasieratik ezarritako *continuum* bat **eratzen** zuena (bakarrik naturaren hondamendiek moztutakoa) edo mailaka **eratuko** zena denboraren joanarekin. Xabier Arregi

Bazen esaera bat ere, aspaldi **eratua**, honela zioena: Ostro irtete, arto ereite; ostro erortze, gari ereite. baserri-legera **eratuak** zeuden ezteiak, baina, oparo, gudaroste bati jaten emateko adina. Pello Zabala

Egokitasun-froga hori burutu ahal izateko, hiztunen erantzunetan oinarritutako gramatikaltasun-irizpideak **eratzeko** urratsak egin daitezke. Itziar Laka

Alderdien mahaia **eratzeko** helburuz sortzen dela esan zuten, baina lagundu ordez eragotzi egiten du. Berria - Euskal Herria

Ez gara geldituko mirariak kontatze hutsean, mirariek ez baitute santutasuna **eratzen**, nahiz eta bai erakusten. Askoren artean

Ez da besterik geratzen: mailatan **eratutako** gizarteak ezartzen dituen morrontzak onartzea edo erreka jotzea, porrotez porrot ibiltzea, beti. Josu Zabaleta

Zergatik ez da **eratu** orain arte ezkerreko mugimendu sendo bat? Berria - Harian

Espazio ekonomiko koherenteak **eratu** nahi ziren, estatuek egituraturiko espazio politikoen gainean osatuak. Koro Navarro

EHFtik kanpo txapelketa bat **eratu** nahi dute Europako Liga indartsuenek Ekonomiazko merkataritzan ari diren estatuetan jarri diren bankuek, zorionez, balio-zeinu berriak **eratu** dituzte beren kredituaren bitartez. Berria - Kirola

Nire bihotzeko sekretu guztien gordailu baitzara, sekula **eratu** dudan asmorik handienaren berri emanen dizut. Jon Muñoz

3 (era burutua izenondo gisa)

Alborakuntza hori, berez, joskera berezia da, -"egoera **eratua"** esaten zaio-. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

era daitezke (3); **era daitezkeen** (3); **era dezaten** (3)

amaren sabelean eratu (3); **arabera eratu** (6); **artean eratu** (4); **atzo eratu** (4); **babes taldea eratu** (3); **bat eratu** (100); **bat eratu da** (3); **bat eratu du** (12); **bat eratu dute** (6); **bat eratu eta** (7); **bat eratu nahi** (15); **bat eratu zen** (8); **bat eratu zuen** (15); **bat eratu zuten** (7); **batasuna eratu** (5); **batean eratu** (3); **batek eratu** (3); **bateratua eratu** (3); **batzorde bat eratu** (13); **batzorde eratu** (3); **batzordea eratu** (20); **batzordea eratu dute** (3); **batzordea eratu eta** (4); **batzordea eratu zuen** (4); **batzordeak eratu** (4); **batzuek eratu** (4); **behineko gobernua eratu** (3); **berak eratu** (6); **berak eratu du** (3); **berri bat eratu** (7); **berria eratu** (9); **berria eratu dute** (3); **berriak eratu** (4); **berriro eratu** (3); **bezala eratu** (4); **da eratu** (4)

eratu ahal (16); **eratu ahal izan** (3); **eratu ahal izango** (3); **eratu ahal izateko** (9); **eratu arte** (5); **eratu aurretik** (8); **eratu baita** (3); **eratu behar** (35); **eratu behar dela** (9); **eratu behar dira** (4); **eratu behar direla** (3); **eratu behar izan** (3); **eratu beharko** (8); **eratu beharra** (7); **eratu berri** (7); **eratu da** (20); **eratu dela** (7); **eratu den** (17); **eratu den lan** (3); **eratu dira** (7); **eratu diren** (7); **eratu ditu** (10); **eratu dituen** (3); **eratu dituzte** (14); **eratu du** (48); **eratu duela** (4); **eratu duen** (8); **eratu dugu** (4); **eratu dute** (49); **eratu duten** (10); **eratu edo** (3); **eratu eta** (48); **eratu eta gero** (4); **eratu ez** (3); **eratu gabe** (5); **eratu genuen** (3); **eratu nahi** (40); **eratu nahi den** (3); **eratu nahi du** (4); **eratu nahi dut** (3); **eratu nahi dute** (10); **eratu ohi** (4); **eratu ondoren** (7); **eratu zaitut** (3); **eratu zela** (3); **eratu zen** (79); **eratu zen atzo** (3); **eratu zen eta** (3); **eratu zenetik** (7); **eratu ziren** (20); **eratu zituen** (16); **eratu zituzten** (7); **eratu zuela** (4); **eratu zuen** (81); **eratu zuen atzo** (4); **eratu zuten** (43); **eratu zuten atzo** (3)

ere eratu (7); **eta eratu** (12); **eta eratu zuen** (3); **ez da eratu** (3); **gainean eratu** (4); **gobernua eratu** (11); **gobernua eratu zen** (3); **gorespenak eratu** (5); **gorespenak eratu eta** (3); **handia eratu** (4); **hori eratu** (3); **ikertzeko batzordea eratu** (3); **inguruan eratu** (5); **jaunaren gorespenak eratu** (4); **koalizioa eratu** (3); **kontseilua eratu** (5); **lan taldea eratu** (3); **mahai eratu** (4); **mahaia eratu** (12); **mahaia eratu aurretik** (3); **mahaia eratu eta** (3); **misioa eratu** (3); **nazionala eratu** (4); **nik eratu** (4); **nik eratu zaitut** (3); **nola eratu** (12); **onerako batzordeak eratu** (3); **plataforma eratu** (3); **propioa eratu** (3); **sabelean eratu** (3); **sortu eta eratu** (6); **talde bat eratu** (6); **taldea eratu** (19); **taldea eratu dute** (5); **taldea eratu zuen** (3); **urte eratu** (3); **urtean eratu** (3)

artean eratutako (5); **bat eratuko** (31); **bat eratuko da** (6); **bat eratuko dela** (5); **bat eratuko dute** (7); **bat eratuko litzateke** (3); **bat eratuta** (3); **bat eratuz** (16); **batzorde bat eratuko** (6); **batzordea eratuko** (6); **berean eratuak** (3); **berria eratuko** (4); **elkarteak eratutako** (4); **eratua dago** (3); **eratua izan** (5); **eratua zen** (4); **eratuak eta** (3); **eratuko da** (24); **eratuko dela** (8); **eratuko den** (12); **eratuko du** (8); **eratuko duela** (3); **eratuko dute** (17); **eratuko dutela** (3); **eratuko duten** (4); **eratuko litzateke** (9); **eratuko zuen** (3); **eraturiko egitasmoa da** (4); **eratuta dago** (3); **eratuta eta** (4); **eratutako batzordeak** (7); **eratutako erakusketa** (3); **eratutako eta** (3); **eratutako taldea** (3); **eratuz eta** (3); **eratuz gero** (3); **eta eratutako** (3); **gainean eratua** (4); **gobernua eratuko** (3); **horrela eratutako** (3); **inguruan eratutako** (6); **mahaia eratuko** (3); **nola**

eratuko (3); **sozialki eratutako** (3)

alderdien mahaia eratzea (10); **alderdien mahaia eratzearen** (3); **alternatiba eratzea** (3); **bakarra eratzea** (3); **bat eratzea** (81); **bat eratzea da** (4); **bat eratzea erabaki** (4); **bat eratzea eta** (6); **bat eratzea proposatu** (6); **bat eratzeak** (3); **bat eratzearen** (10); **bat eratzearen alde** (7); **bat eratzeari** (3); **baten eratzea** (5); **bateratua eratzea** (3); **batzorde bat eratzea** (11); **batzordea eratzea** (17); **batzordea eratzea onartu** (4); **berezia eratzea** (3); **berria eratzea** (4); **bi mahai eratzea** (7); **eratze aldera** (3); **eratzea aurreikusten** (3); **eratzea aurreikusten du** (3); **eratzea da** (21); **eratzea dela** (4); **eratzea dela esan** (3); **eratzea erabaki** (10); **eratzea erabaki zuten** (4); **eratzea ere** (3); **eratzea eskatu** (4); **eratzea eskatzen** (3); **eratzea eta** (16); **eratzea ez** (4); **eratzea galdegin** (3); **eratzea helburu** (3); **eratzea hitzartu** (5); **eratzea hitzartu zuten** (3); **eratzea izango** (5); **eratzea izango da** (4); **eratzea nahi** (3); **eratzea onartu** (7); **eratzea onartu zuen** (3); **eratzea proposatu** (24); **eratzea proposatu dio** (3); **eratzea proposatu du** (4); **eratzea proposatu zuen** (8); **eratzea proposatzen** (6); **eratzearen alde** (11); **eratzearen aurka** (3); **eratzeaz gain** (3); **gobernu bat eratzea** (3); **gobernua eratzea** (9); **gobernua eratzea proposatu** (3); **ikerketa batzordea eratzea** (6); **independente bat eratzea** (3); **iraunkorra eratzea** (3); **koalizio gobernua eratzea** (3); **komuna eratzea** (3); **konferentzia bat eratzea** (3); **konponbiderako mahaia eratzea** (4); **mahai bat eratzea** (4); **mahai eratzea** (7); **mahaia eratze** (3); **mahaia eratze aldera** (3); **mahaia eratzea** (25); **mahaia eratzearen** (6); **mahaiak eratzea** (3); **sareak eratzea** (3); **talde bat eratzea** (5); **taldea eratzea** (4)

alderdien mahaia eratzeko (19); **alternatiba eratzeko** (6); **arteko mahaia eratzeko** (3); **bat eratzeko** (65); **bat eratzeko asmoa** (4); **bat eratzeko eskatu** (6); **batzorde bat eratzeko** (3); **batzordea eratzeko** (14); **berri bat eratzeko** (6); **berria eratzeko** (8); **berriak eratzeko** (3); **elkarrizketa mahaia eratzeko** (10); **enuntziatuak eratzeko** (3); **epaimahaia eratzeko** (4); **epaimahaia eratzeko prozesua** (3); **eratzeko ahaleginak** (3); **eratzeko aitzakiarik** (3); **eratzeko aitzakiarik ez** (3); **eratzeko akordioa** (3); **eratzeko arauak** (3); **eratzeko asmoa** (9); **eratzeko asmoa agertu** (3); **eratzeko asmoa azaldu** (3); **eratzeko aukera** (12); **eratzeko behar** (3); **eratzeko bere** (3); **eratzeko borondatea** (3); **eratzeko ekimena** (4); **eratzeko erabili** (3); **eratzeko eskaera** (7); **eratzeko eskatu** (18); **eratzeko eskatu du** (3); **eratzeko eskatu zion** (4); **eratzeko eskatuko** (3); **eratzeko eta** (6); **eratzeko ez** (3); **eratzeko gai** (3); **eratzeko garaia** (3); **eratzeko ideia** (4); **eratzeko konpromisoa** (5); **eratzeko konpromisoa berretsi** (3); **eratzeko modua** (3); **eratzeko oinarriak** (3); **eratzeko orduan** (3); **eratzeko prest** (7); **eratzeko prest agertu** (5); **eratzeko proposamena** (5); **eratzeko prozesua** (3); **eratzeko prozesua hasiko** (3); **eratzeko sistema** (3); **ez eratzeko** (3); **gisa eratzeko** (3); **gobernu bat eratzeko** (4); **gobernu berria eratzeko** (5); **gobernua eratzeko** (21); **hau eratzeko** (5); **hori eratzeko** (5); **ikerketa batzordea eratzeko** (7); **koalizio gobernua eratzeko** (8); **kontzeptuak eratzeko** (5); **mahai bat eratzeko** (3); **mahaia eratzeko** (48); **mahaia eratzeko eskatu** (4); **mahaia eratzeko garaia** (3); **mahaiak eratzeko** (4); **politiko bat eratzeko** (3); **propioa eratzeko** (3); **sarea eratzeko** (3); **talde bat eratzeko** (3); **taldea eratzeko** (5); **taldeak eratzeko** (3); **zinpeko epaimahaia eratzeko** (4)

arabera eratzen (5); **baitute santutasuna eratzen** (3); **bat eratzen** (52); **bat eratzen ari** (3); **bat eratzen du** (8); **bat eratzen dute** (7); **bat eratzen zuten** (5); **begian eratzen** (3); **berak eratzen** (5); **berak eratzen duen** (3); **bezala eratzen** (3); **bitartez eratzen** (3); **eratzen ari** (17); **eratzen ari da** (5); **eratzen ari den** (5); **eratzen ari dira** (3); **eratzen bada** (4); **eratzen baitute** (4); **eratzen da** (13); **eratzen dela** (3); **eratzen den** (24); **eratzen den irudi** (3); **eratzen denean** (3); **eratzen dira** (11); **eratzen direla** (3); **eratzen diren** (16); **eratzen ditu** (5); **eratzen dituen** (4); **eratzen dituzte** (7); **eratzen dituzten** (8); **eratzen du** (21); **eratzen duela** (3); **eratzen duen** (28); **eratzen duena** (8); **eratzen dugu** (5); **eratzen dute** (18); **eratzen dutela** (4); **eratzen duten** (25); **eratzen eta** (10); **eratzen ez** (3); **eratzen hasi** (8); **eratzen zen** (7); **eratzen ziren** (3); **eratzen zituen** (3); **eratzen zituzten** (10); **eratzen zuen** (11); **eratzen zuena** (3); **eratzen zuten** (16); **erretinan eratzen** (4); **eta eratzen** (5); **formaldatzea eratzen** (4); **formaldatzea eratzen dugu** (4); **gainean eratzen** (5); **herria eratzen** (3); **horrek eratzen** (3); **jaurlaritza eratzen** (4); **jaurlaritza eratzen duten** (3); **konplexua eratzen** (3); **nola eratzen** (8); **nola eratzen diren** (4); **ondorioz eratzen** (3); **santutasuna eratzen** (3); **taldeak eratzen** (3); **zen eratzen** (3)

---

eratubako *izond* eratugabea.

Badakizu: eratua eta **eratubakoa**, ordena eta kaosa. Jose Angel Irigaray

Eratubakoa ene aberritzat baitaukat. Jose Angel Irigaray

---

eratugabe *izond* eratu ez dena.

Zentzugabea litzateke nazioarte indarrari Iraketik alde egin dezan eskatzea, gure herrialdearen segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeko egiturak oraingoz **eratugabeak** baitira. Berria - Mundua

---

eratxeki ik **eratxiki**.

---

eratxiki *(orobat **eratsiki** g.er. eta **eratxeki** g.er.)* du *ad* erantsi, lotu, atxiki.

Euskal Herria, bere ñimiñoan, **eratxikia** izan denaz geroz, eta aspalditik, Frantziari, [...]. Piarres Xarriton

Bordeletik abiatzean bi edo hiru bagoitara preso ginen bidaia guzian, joan arau, bagoitara bagoitarari **eratxikitzen** zitzaion. Marzel Etxehandi

Pentsalari gisa, Trentoko kontzilioaren jarraitzaile ezin fidelagoa eta leialagoa, halako suertez, non beldurrik gabe afirma baitaiteke ezen deus guti berririk eransten eta **eratxikitzen** diela Trentotik hedatu ziren ideiei eta arau moralei. Joan Mari Irigoien

Galderari galdera **eratxikitzen** diodala. Joan Mari Irigoien

Hemendik tira eta handik luza moldatutako testua **eratxiki** nion azpian, literaturaz mukuru eta informazioz eskas. Aingeru Epaltza

Eta, irri egiten zidala, **eratxikitzen** zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Profitatuz ezen errotaren kanala jauregiko gibel-hormari itsatsia eta **eratxikia** iragaiten zela. Joan Mari Irigoien

Ez zait zuzen iduri ene buruari bi sailetako doktor **tituluak** eratxikitzea, ezen eliza legeari baino lehenago eta asti gehiago emanik ere estatu legeari eta bi irakaspenak eginagatik Galian nindabilenean, Doktoretza deitzen duten saria izateko orduan, ez nintzen menturatu eliza legezkoarena baizik eskatzera. Piarres Xarriton

Behin behean, eseri egin zen, zeta arrosa-kolorea orratzez **eratxiki** zuen belaun gainetan, eta puntada luzez josten hasi zen parpaila estua, erdi eginda zeukan janzkiaren lepoaldean zehar. Mirentxu Larrañaga

---

eratxikor *izond* itsaskorra, itsasgarria.

Une psikologiko neketsu hauen jabalgarri, medikuek asmatzen ahalko zituzketen, eta agudo, papoan pausatzeko patx **eratxikorrak**, horrela mikro lo ugarien iturriak nornahiri zabalduz. Itxaro Borda

---

eratzaile 1 *izond/iz* eratzen duena.

Ez dut, halaber, ekintza fundatzaile batera edo kontzientzia **eratzaile** batera murriztu nahi izan arrazionaltasunaren ostertz orokorra. Xabier Arregi

Hau guztia ez da, egia esan [...] oinarri bat aurkitzea, egintza **eratzaileak** askatzea. Xabier Arregi

Urte bereko uztailaren 25ean konstituzio berria idatziko zuen Batzar **Eratzaile** Nazionalerako diputatuak aukeratzeko hauteskunde berriak antolatu zituen. Pako Aristi

Anartean, akordio bat hitzartu dute, eta Irakeko Konferentzia **Eratzailea** deitu duten batasunaren helburuak zehaztu. Berria - Mundua

Jakina denez, Bederatzi hilabetez Amaiur izeneko prozesu **eratzailean** murgildu zen gazte erakundea. Berria - Euskal Herria

Batzar hura **eratzaile** bihurtu zen, eta erregerik gabeko Konstituzio berria antolatzen hasi zen. Askoren artean

Eskaera horri libreki egin iezaiozu men, ni naizelako munduko Inperioen **eratzailea** eta hondatzailea. Jon Alonso

Arrazoimena da subjektu hori, errealitatearen **eratzailea**. Askoren artean

Erregela horiek balio erregulatzailea baino ez dute izango, ez, ordea, **eratzailea**. Ibon Uribarri

Aipatutako lege dinamikoak **eratzaileak** dira, dena dela, esperientziari dagokionez, adigaiak a priori ahalbidetzen dituzten heinean, hauek gabe ez bailitzateke egongo esperientziarik. Ibon Uribarri

Estatu modernoen **eratzailea**, historikoki, ez da izan zuzenbide erromatarra, bai jaun germaniar basaren ukabila. Joxe Azurmendi

Iruditeriaren kontzeptu honek bi osagai ditu, bada, Lacanen teoriaren arabera: "1. subjektuak bere identifikazio-**eratzaileekin** dituen harremanak,... eta 2. subjektuak errealitatearekin duen erlazioa, erreal horren ezaugarria ilusiozkoa izatea delarik". Josu Zabaleta

Eratzaileak oso kexu dira aurten erakundeen partaidetza «izan behar zuenaren erditik behera» geratu delako. Berria - Kultura

Baldintza horren azpian soilik geundeke, ez kanpo-kausen eraginezko jardute baten aurrean [...] baizik eta esplizitatu beharreko ahalmen beraren eraginezkoan: existentzian dirauen bere esentzia, *conatus* edo dinamismo **eratzailezkoaren** eraginezkoan. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batzar eratzailea (5); **batzar eratzailean** (5); **eratzaile gisa** (7); **eratzailea egin** (3); **eratzailea eta** (3); **eratzaileak diren** (3); **eta eratzailea** (3); **printzipio eratzaile gisa** (4); **prozesu eratzailea** (3)

---

eratzaileki *adlag* modu eratzailean.

Zerizan goren baten ideia erregulatiboki ez ezik **eratzaileki** ere (ideia baten izaeraren aurka doana) erabiltzetik sortzen den lehenengo huts egitea arrazoimen alferra da (*ignava ratio*). Ibon Uribarri

---

eratzan, eratzan, eratzaten du *ad* etzanarazi.

-Ohean **eratzan** behar dinagu. Juan Garzia

Esku biez heldu zidan lastairaren gainean, eta ahuspez **eratzan** ninduen, lehenengo lanaren zirriborroak egiteko. Javi Cillero

Hortik **eratzaten** dituzte abereek euren gorputzak larre alaietan, gizenez astundurik, eta esne zuria erioten errape handituetatik. Xabier Amuriza

Baina negar baino ezin dut egin, lur hotzean **eratzan** dutela gogora ekarririk. Juan Garzia

Kanpamentutik tarras atera dutena -fardela dirudi, masa bizigabea, trapu piloa- erreskadaren amaieran bota dute, han **eratzan** dute: ez begiratzen saiatu naiz. Urtzi Urrutikoetxea

Hilobian **eratzanik**, gure haurtzaroa ere ehorzten dugu. Joxan Elosegi

Aitor jarri zen gidari, eta burua haren kontra **eratzanda** egin zuen bidea Arantxak. Iban Zaldua

---

eratze *iz* era ematea; multzo bati, zatiak antolatuz, izatasuna ematea; era jakin bat emanez itxuratzea.

Subjektuaren **eratze** hori, humanismoan hasi eta gerora Descartesengan *-cogito*-arekin-, Argien Mendean eta erromantizismoan jarraitzen da. Josu Zabaleta

Eratze bidean dagoen Europari buruzko eztabaidan parte hartu nahi dugu, beste estatu batzuen galbaherik gabe. Berria - Euskal Herria

Erakunde berriaren **eratze** txostenaren inguruko batzarra eta alderdien mahaia babesteko elkarretaratzea Gasteizen. Berria - Euskal Herria

Biharko **eratze** biltzar nagusia 20: 30ean iraganen da Uztaritzeko Latsa gelan. Berria - Euskal Herria

Hil horren 17an izan zen **eratze** bilera; egun horretan hasi ginen lanean. Berria - Euskal Herria

Eratze-prozesu konplexu hori ulertzeko lehen gai-zerrendaren muga gainditu eta prozesuaren dimentsio sozio-kognitiboan sartu behar dugu. Askoren artean

Udalbiltzak bere **eratze** ekitaldian aldarrikatutako bost oinarriak berretsi dituzte hautetsiek. Berria - Euskal Herria

Akitania eta Eusko Jaurlaritzaren artean sortutako plataforma bi komunitateen arteko «euro-eskualdearen **eratze** agiria» dela iritzi zion Ibarretxek. Berria - Euskal Herria

Hizkuntzaren deskribapenak, aro klasikoan, paper menderatzailea jokatzen du, **eratze** zeinuen teoria den neurrian, zeinu horiek errepresentazio bera bitan banatu, markatu eta errepresentatzen duten neurrian. Xabier Arregi

Legenda-ren **eratze**-datari buruz ere, bi multzoak bereizi behar dira: [...]. Askoren artean

Bi giltzurrunetako irazki-unitateetatik ateratzen den kantitatea minutuko 130 ml inguru da, baina gernuaren **eratze**-indizea ez da minutuko 1 ml baino. Irene Aldasoro

---

eratzear *adlag* eratzeko zorian.

Eratzear dagoen Gaindegiako lehendakari Xabier Isasik ere Aranbururen heriotzak ekarri duen galera azpimarratu zuen atzo. Berria - Ekonomia

Eratzear dagoen Gaindegiako, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategiko, idazkari nagusia zen. Berria - Ekonomia

---

erauki erauki, eraukitzen du *ad* desiratzen den edo eskatzen den zerbait eman; amore eman.

Bere Maiestate Tsarra bera zaintzen dut -Jainkoak osasun eta bizitza luze **erauki** diezaiola- baina zergatik iitsi naiz ohore horretara? Matías Múgica

Erauki zidan bera bezalako parrokiano zaharra izateko ohorea eta zenbait asteren buruan aspaldiko ezagunek elkarrentzat izaten duten irribarre konplize eta esanguratsua egiten zidan agurtzeko. Matías Múgica

Agian bitarte hartan printzeak horren gainean pentsatu, egun batez hemen azaldu, eta zapla **eraukiko** zizkidan [...] bere izena, bere titulua eta bere ondasun amets-egingarri guztiak. Matías Múgica

Ez genuen partida bukatu, **erauki** eta buelta eman nion taulari, figurak berriro bertan kokatzeari ekinez. Joxe Austin Arrieta

---

erauntsi 1 da/du *ad adkor* aritu, jardun.

Irudimenaren emendioa gehituta, ordu erdiz, halako voyeurismo suerte batean **erauntsi** nintzen, ikusmena barik, entzumena bide: zango oinutsak ganberan eta korridorean barna harat-honat, [...]. Aingeru Epaltza

Beltzak bezala **erauntsi** ziren lanean eta sari bakarra zuten oturuntza bat egunean eta ohatze ustel bat lurrean, eta oraino bazirelarik. Elena Touyarou

Sohütarrak ahatzarazi gabe, ontsa **erauntsi** düe arizaleek, eta bereziki süjetak, bai joküan, bai botzen erabiltean, botz handien ükeitea bezain balios beita oraiko sonoekin. Herria

Charlyk enpresari tiki gisa zituen ardurez **erauntsi** zidan, su niretako ezezagunean. Aingeru Epaltza

Lüzaz tratüan **erauntsirik**, ez dira bat jartera heltü bi alderdietakoak. Herria

Haren zapata takoidunek **erauntsia** zuten lehiakide, zapla-zapla, zein ozenago gertatuko karrapeko haurlauzen gainean. Aingeru Epaltza

• **2** *iz* atmosfera gertakariez mintzatuz, erasoa.

Erauntsi eta jasa egokitzen zaizunean, baztertzea hobe! Pello Zabala

Euri xehe bat, **erauntsiak** baino ezagutzen ez dituzten lur hauentzat arraroa. Juan Garzia

Urki baten enbortzar zuriak -adabururik gabe, ekaitzek edo **erauntsiek** erauzi baitzioten- gaina hartzen zion baso tapituari, airean zut, Uholde handi horietakoak gelditzen dira akorduan: 6 orduko **erauntsia** Bartzelonan, adibidez. Jose Morales

Eraso handian ekin zioten haizeak lehendabizi, hurren neurriko elur maluten **erauntsiak** gero. Anjel Lertxundi

Haren aginduz urak zeruan pilatzen dira, hodeiak zerumugan gora igotzen, **erauntsiak** tximistaka lehertzen. Askoren artean

240 kilometro ko haizeak Gibraltar aldean: lagun bat **erauntsiak** hila. Pello Zabala

1967an, Alacanten, 24 orduko **erauntsian**, 305 litro bota zituen. Pello Zabala

Gero, **erauntsia** baretu bezain laster, zuhaitzaren urrezko sustraietatik beste zuhaitz bat sortu zen guztiz urrezkoa. Askoren artean

Erauntsiak ez dio ematen astirik urak lurrazala beratu dezan ere, eta dena pilatzen da maldan behera uharka. berriro begiratu zidan zeharka, anaia nagusi legez laguntza eske amaren **erauntsiaren** aurrean. Pello Zabala

Diligentziatik jauzi egin eta pauso batzuk eman nituen **erauntsiarekin** ozta-ozta sumatzen nuen etxe baterantz. Bernardo Atxaga

Nazgûlen gainera abiatu ziren, hego handiak astintzean **erauntsiaren** antzeko orroa sortuz. Agustin Otsoa

Erauntsiaren zaparradek gainerateko harrabots guziak estaltzen dituzte. Filipe Bidart

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Balear Uharteetan, **erauntsi** handiak bota zituen dozenerdi bat urtetan. Pello Zabala

Herenegun elurra mara-mara egin zuen arren, **erauntsi** laburra izan zen eta elurrak ez zituen errepideak hartu. Berria - Harian

Gernikako **erauntsi** lazgarriaren ondotik, laster hasi zen beraz, 1939an, II. Mundu Gerla. Piarres Xarriton

Badator gure Jainkoa, eta ez isilean: su irenskorra aurretik, **erauntsi** zakarra inguruan. Elizen arteko biblia

Ostots eta **erauntsi** gaiztoetatik Nafarroako uzta eta laboreak denak babesteko intentziotan ipintzen zituzten. Pello Zabala

Erauntsi betean, eta euri-jasak etengabe elkarri jarraitzen zitzaizkiolarik, eta... aurrera mutillak! Txillardegi

-1971an, harrijasa eta **erauntsi** mardul gaizto batek hondatu zuen Leon aldea. Pello Zabala

1495ean, Bartzelonan, kazkabar **erauntsi** mardul batek hiriko kale, kale inguru eta mendiak, dena, zuri-zuri utzi zuen, elur zuria bailitzan. Pello Zabala

Gandian, tximist-trumoi eta harri **erauntsi** ikusgarriak bota zituen. Pello Zabala

Elur mardula hasi zuen bat-batean, mara-mara eta oparo, **erauntsi** etengabean. Anjel Lertxundi

Eurijasa zen, **erauntsi** lodi uholdezkoa. Josu Zabaleta

Sekulako **erauntsia** ari zuen gau ilun batez komentuan sartu, neska bahitu eta gaztelura eraman zuen. Martin Anso

Elurra hasi zuen gogotik, benetako **erauntsia**, haize zakarrarekin. Bernardo Atxaga

Soroetan hostotu eta denak loratu direnean, edo eguzki etertarrak bero gehiegiz kiskaltzen ditu, edo bat-bateko **erauntsiek** eta izotz zuriek hondatzen dituzte. Xabier Amuriza

Honek euria egingo zuela; haiek berriz berebiziko **erauntsia** izango zela. Anton Garikano

Antzina ere gertatzen zirela halamoduzko **erauntsi** eta ekaitz eta gainerakoak. Pello Zabala

Zerua geroz eta ilunago jarri zen, hodei eta aldagoi-haizearen eraginez, eta izugarrizko **erauntsia** egin zuen. Elizen arteko biblia

Nafarroako Erriberan eta Errioxa aldean, harri eta txingor **erauntsi** egundoko eta ikustekoak gertatu ziren. Pello Zabala

1979an, Valdepeñasen, itxurabako ekaitz eta **erauntsiak**. Pello Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1608an, Bartzelonan haizete eta ekaitz **erauntsiak**, kazkabar eta harri, 20 zentimetro jelatu gelditu ziren, martxoaren 28an. Pello Zabala

Behar ez den bakarra, trumoi eta ekaitz **erauntsiak** etortzea. Pello Zabala

Ekaitza geldituko da eta kazkabar-**erauntsia** atertuko, lur osoa Jaunarena dela ikus dezazun. Jose Antonio Mujika

Historiak dioenaz arratsalde hartan kiskaltzeko bero bat egin zuen, aldiz aurten gertakaria omentzeko tenorean izigarriko ortzantz **erauntsiak** atzeman gintuen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mollyren amak atean hartu ninduen, trumoi-**erauntsia** iduri zuen aurpegia agerian. Mirentxu Larrañaga

Uztailaren 3an zen hori: bada, handik bi egunera, Nafarroako Erriberan eta Errioxa aldean, harri eta txingor **erauntsi** egundoko eta ikustekoak gertatu ziren. Pello Zabala

Hor agertzen dira tarteka harri **erauntsiak** egindako triskantza eta hondaketak. Pello Zabala

1999an, haize euri eta elur **erauntsiak** Kanariar Uharteetan. Pello Zabala

Itsasoko indar eta orro marrumen zuhaitza izateaz gainera, uholde eta ur-**erauntsiena** ere bera omen zuten antzina. Pello Zabala

Dinosauruak kixkali zituen su **erauntsiak** hainbat hilabetez iraun zuen, eta hautsa eta hondakinak jaurti zituen lau haizetara. Javi Cillero

1990an, berriz, hotz **erauntsi** ustekabekoa penintsularen hegoaldean. Pello Zabala

Iraken dagoen «terrorismo **erauntsia**» leporatu zien. Berria - Mundua

Seinaleak uzteko azeriak duen ohiturarekin loturik dator, nonbait, azeri **erauntsia** deitzen baitzaio: euri pixkat, gero eguzki pixkat eta berriz ere euri pixkat. Pello Zabala

· Gau beltza zen, eta noiztenka elur busti **erauntsi** bat izanik ere, ez zuen argi beharrik nora bideratu jakiteko. Elena Touyarou

Gutitan ezagutu izan den euri izoztu **erauntsi** ikaragarria badatorrela eta gau honetan hor izanen dugula. Aurelia Arkotxa

5 irud/hed

Erauntsi gogorra hasi zitzaidan bihotzean. Matías Múgica

Shaquille O'Nealek **erauntsi** informatiboa eragin du joan den leku guztietan. Berria - Kirola

Txirrindularia, gainera etorri zitzaion **erauntsi** mediatikoarekin gustura, munduko erdigunea izaten jarraitzeko zereginean murgildu zen. Berria - Kirola

Nafarrak saiatu ziren Bartzelonaren **erauntsiari** aurre egiten. Berria - Kirola

Eztul-**erauntsiak** mahaiaren gaina eta inguruak zipriztindu zituen. Josu Landa

Istanteko atertu zen kolpe **erauntsia**. Aingeru Epaltza

Nire gorputza zartada-**erauntsitik** gerizatu nahirik. Aingeru Epaltza

Gero, begiak bildu eta hatsa atxiki nuen, tiro-**erauntsiaren** esperoan. Aingeru Epaltza

Gero, bertze tiro eta gezi **erauntsi** batek makurrarazi zuen betiko. Aingeru Epaltza

Misil **erauntsia**. Berria - Mundua

Berehalaxe harrikada **erauntsi** batek beirak puskatu zituen. Josu Zabaleta

Atzoko giroaren parera, uholderik ez: boto **erauntsia** izan zen. Berria - Harian

Ez da berun **erauntsirik**, ordea. Aingeru Epaltza

Berriz maitasun-**erauntsi** batek astindu zion bihotza. Fernando Rey

Urrun dago oraindik inspirazioaren **erauntsi** errukigabeak beste alde batetik joko dueneko eguna. Jose Morales

Neskamea galdua zegoen, itoa, zanpatua, irain **erauntsi** haren erdian. Karlos Zabala

Armadura distiratsuko zalduneria ezkoa bezala urtu zen espainolaren su-**erauntsiaren** pean. Aingeru Epaltza

Lagun berriak egitea ez da nire dohainetarik eta ez nengoen bertze hitz-**erauntsi** bat jasateko tipoan. Aingeru Epaltza

Bertze bi armagizonek irri egin bai baina nekez zuten hitzik tartekatzen solas **erauntsi** hartan. Aingeru Epaltza

Horixe zekarren bat-bateko dei **erauntsiak**. Aingeru Epaltza

Joanesek, isil-isila, ttette bezala, gibeletik jarraitu zuen, etorriko zitzaion **erauntsiaren** beldurrez. Eneko Bidegain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

elur erauntsi (7); **elur erauntsi** (7); **elur erauntsiak** (5); **erauntsi bat** (9); **erauntsi bat** (9); **erauntsi batek** (13); **erauntsi batek** (13); **erauntsi baten** (5); **erauntsi baten** (5); **erauntsi bortitza** (4); **erauntsi bortitza** (4); **erauntsi edo** (3); **erauntsi edo** (3); **erauntsi eta** (5); **erauntsi eta** (5); **erauntsi mardul** (3); **erauntsi mardul** (3); **erauntsi zakarra** (3); **erauntsi zakarra** (3); **erauntsiak tximistaka** (3); **erauntsiaren azpian** (3); **erauntsiek soro** (4); **erauntsiek soro eta** (4); **eta erauntsi** (5); **eta erauntsi** (5); **eta harri erauntsi** (4); **eta harri erauntsi** (4); **euri erauntsi** (9); **euri erauntsi** (9); **euri erauntsi bat** (3); **euri erauntsi bat** (3); **euri erauntsiak** (10); **euri erauntsiek** (3); **haize erauntsi** (16); **haize erauntsi** (16); **haize erauntsi batek** (5); **haize erauntsi batek** (5); **haize erauntsiak** (15); **haize erauntsiaren** (5); **haize erauntsiek** (3); **harri erauntsi** (13); **harri erauntsi** (13); **harri erauntsirik** (3); **hitz erauntsi** (3); **hitz erauntsi** (3); **kazkabar erauntsi** (4); **kazkabar erauntsi** (4); **kazkabar erauntsiek** (4); **kazkabar erauntsiek soro** (4)

---

erauntsialdi *iz* erauntsia gertatzen den aldia.

Baina, 17tik 27ra bitartean edo, berriro iparrak muturra sartuz, aguantez gelditu ziren orbelak airean daramatzan **erauntsialdia** etorri ohi da berriro; neguaren goraintzi serioak dira horiek... Pello Zabala

erauntsitxo *iz adkor* erantsi txikia.

Gauerdi edo goizalbaren batean euri pittin moxkor-moxkor horietako **erauntsitxo** bat botata ere, ez legoke gaizki: kirats batzuen kutsadura garbitzeko aproposa, eta karakoltxoak ateratzeko ere... Pello Zabala

---

erauntsitzar *iz adkor* erantsi gaitza.

1532an, gugandik gertuago, Errioxan, Donemilian, arratseko 4retan, maiatzaren 30ean, uholde eta harri, monasterioa suntsitu zuen **erauntsitzar** batek. Pello Zabala

---

erausi[1] **1** *iz* jarduna.

Eta orduan, berriro, betiko bozgorailuaren **erausia**: *Your attention please, your attention please,* [...]. Joxe Austin Arrieta

Hainbertze juramentu eta **erausi**. Hasier Etxeberria

2 ***erausian*** *adlag* hizketan.

Erausian heldu dira, huskeriak solas. Aingeru Epaltza

Alfontsok apustu eginen luke beragatik ari direla **erausian**. miliak egin genituen oinez honetaz eta hartaz berriketan, Bennett botanika eta geologiaz **erausian**, haraino iritsi bitartean. Aingeru Epaltza

Handik bi ordura, Saint-Lazare geltokiaren aurrean ikusi nuen berriro, lagun batekin **erausian**. Berria - Kultura

3 ***erausika*** *adlag* erausian.

Ezezaguna bada, poliki-poliki hurbilduko zaizkio, **erausika**. Gotzon Garate

Zakurra, jendearen oihuak entzun eta **erausika** hasi zen. Gotzon Garate

---

erausi[2] ik **erauzi**.

---

erausiaka *adlag* erausian, hizketan.

Hura zuten mementorik kokinena, zakurrak **erausiaka** hasi gabe behar baitzituzten lekuak hustu eta mugaz bertzaldera iragan, Burkatxen bordako aldera. Eneko Bidegain

---

erausle ik **eraisle**.

---

erautsi ik **eraitsi**.

---

erautzi ik **erauzi**.

---

erauzarazi, erauzaraz, erauzarazten du *ad* erauztera behartu.

Domizianok, printze herabea izaki, **erauzarazi** egin zituen Galiako mahatsondoak, ardoak barbaroak erakarriko zituen beldurrez, antzina Italiara erakarri zituen bezala. Iñaki Iñurrieta

Ez ziren guti izan, halaber, gehiegikeriak eta bidegabekeriak, zeren, babes haren gerizpean, nornahik sala baitzezakeen bertze nornahi, edo, gezurraz baliaturik, falso testimonio gaixtoren bat **erauzaraz**, bekaitzari eta inbidiari bide emanez, bidegabeki. Joan Mari Irigoien

---

erauzgailu *iz* erauzteko gailua.

Errusiako Jukos petrolio taldeak gas **erauzgailu** bateko partaidetza saldu du, 357 milioi dolarren truke. Berria - Ekonomia

---

erauzgarri *izond* erauzten duena.

Erbi-larruzko estalkia zuen eta sei erabileratarako tresna **erauzgarriak**. Jon Maia

---

erauzi, erauz, erauzten *(orobat* ***erautzi*** *g.er. eta* ***erausi*** *g.er.)* **1** du *ad* indarrez edo errotik atera.

Bi begiak atera zizkieten beren zuloetatik, koilara txiki bat erabiliz, eta gero, **erauzitako** begiak ahoan sartu zizkieten. Karlos Linazasoro

Ni espetxean egon naiz azazkalak **erauzita** zituzten ETAko pertsonekin. Berria - Euskal Herria

Bere barrabilak **erauziko** lituzke zertan zebilen dakidala ohartuz gero. Anjel Lertxundi

Freuden arabera klitoria **erauztea**, "aztarna faliko" hori kentzea, emakumea are gehiago feminizatzeko ahalegina zen. Luis Elberdin

Esana zien zirujauak ezinezko izan zitzaiela tumorea erabat **erauztea**. Imanol Zurutuza

Giza enbrioietatik **erauzitako** zelula amekin. Berria - Gaiak

Zilbor hesteetatik **erauzitako** zelulak ere erregistro horretan sartzea erabaki zen. Berria - Gaiak

Lehenago, belarriak, sudurra eta titiburuak **erauzi** zizkioten, sutan goritutako burdinekin. Aingeru Epaltza

Beso bat **erauzi** zion eta bestea mastrikatu. Gotzon Garate

Mordreten seme gaztearengana heldu, eta kolpe batez burua **erauzi** zion. Juan Kruz Igerabide

Enperadorearen bilobari ekin zion, amorru bizian, eta kolpe batez besoa **erauzi** zion sorbaldatik. Juan Kruz Igerabide

Hedatua zegoen, ordea, uniformeei botoi urreztatuak **erauzi** eta [...] botoi doratu haiekin ordaintzeko ohitura. Harkaitz Cano

Erauziko ditut zure zutoin sakratuak, eta zure hiriak erraustuko. Elizen arteko biblia

Adarrei begira nengoela, adar txikiago bat atera zitzaion beste adarren artean, eta hauetako hiru **erauzi** zizkion. Elizen arteko biblia

Sustraiak kentzea, **erauztea**, landarea zimurtu eta akitzea izango zuan. Javi Cillero

Loreak erabat ireki zirenean baratzetik **erauzi** eta lurrez betetako orgatxoan jarri zituen etzanda, umetxoak bailiran. Eider Rodriguez

Liburua brasta **erauzi** zidan eskuetatik eta ziztuan lekutu zen nire ondotik. Aingeru Epaltza

Esekitokia **erauzi** egin zuen kasik, kapela eta bufanda zintzilik jarri zituenean. Karlos Zabala

Telefonoa **erauzi** diogu atzaparretatik, nahikotxo kostata. Karlos Linazasoro

Haizeak **erauzitako** hosto iharrak. Josu Zabaleta

Mendi handiak edo mendietatik **erauzitako** haitzak. Xabier Amuriza

Alde batera eta bestera ekin zion berriro, hau eraitsi, hura hil, ezkutuak zulatu, buruko babesgarriak **erauzi**. Juan Kruz Igerabide

Urrezko hortzeria **erauzirik**, urrunera jaurti zuen. Patxi Zubizarreta

Gonaldeko zerrenda bat, oin bat zabal, **erauzia** ageri zen beheko azpilduratik gerri alderaino, baina guztiz puskatu gabe. Koro Navarro

Zoriontasuna atzeman dut senarraren ondoan eta galtzea nire gorputzaren erdia **erautziko** balidate bezala sentituko nintzateke. Berria - Euskal Herria

Nola liteke aldi berean kaltzita **erauztea** eta atseden lekua izatea? Berria - Euskal Herria

Balio natural goreneko eta babes bereziko gunetzat jotzen diren itsaslabarretan eta itsaso ingurunean 54 milioi metro kubiko lur **erauzi** eta 232 hektareako portu zabalgunea eta 3,4 kilometroko dikea eraikitzeko. Berria - Euskal Herria

Bizitzaren altzotik **erausi** eta bizitzari buruz inorekin hitz egiteko aukerarik gabe utzi bagintuzte bezalakoa duk emigranteon zorigaitza! Anjel Lertxundi

Kendu gabe zegoen eguneko orria **erauzi** dut: urtarrilaren 18koa. Txillardegi

Zezenzaleen buletinetik **erauzitako** orria eman zion, zetorren udako ikuskizunen iragarpena egiten zuena. Josu Landa

Ez dirudi oso zentzuzkoa litzatekeenik poema hori euskal poesiaren antologietatik **erauztea**. Joxerra Garzia

Liburu honek ere, beraz, horixe nahi luke: zortzi unibertso hauen aurrean [...] literatur sistema osatzen duten agente orori, funtzioaren bukaeran, merezimenduzko txaloa **erausteko** arrazoiak ematea. Ana Urkiza

Txaketako patrikatik katalogotik **erauzitako** argazkia atera zuen. Harkaitz Cano

Orri marradun bat zen, eskolako koaderno batetik **erauzia**, dudarik gabe. Monika Etxebarria

Landareak urtebete behar izaten du hazteko, gero uzta bildu egin behar izaten da, eta, segidan, droga **erauzi**; baldintza oso bereziak bete behar izaten dira dena ondo ateratzeko. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Euskal nazionalismoa hondoratu, hankaperatu eta errotik **erauzi** behar da. Jokin Urain

Ilusioak azpikoz goratu zituen, lehiak birrindu, arimaren uste onak **erauzi**, maitasuna hil, emakumearen gurtza ideala eraitsi. Josu Zabaleta

Hots batek **erauzi** zuen nire iloba lozorrotik. Turuta batek **erauzi** zaitu gogoeta eta kezketatik. Oskar Arana

Abas bere bihotzetik guztiz **erauzia** zuen, haren irudia guztiz ezabatua. Patxi Zubizarreta

Bizitza normaletik **erauzia**, bere bizitza anormalaren biktima gertatu zen. Patxi Zubizarreta

Eutsi egin behar genion, bai, agintariek errotik **erauzi** nahi izan ziguten ametsari. Joan Mari Irigoien

3 (era burutua izenondo gisa)

Ezerezean geratu da Kristina Getek sufritu zuen biolazioa, ezerezean Kepa Urraren bihotzerainoko ubeldurak, ezerezean Joseba Arregiren oinetako erreak, Mikel Zabaltzaren birika urez puztuak, Lasa eta Zabalaren azazkal **erauziak**. Iñigo Aranbarri

Ez pentsa, utzitakoaren bila itzultzea pentsatzen baitut, lurperatutako beso **erauziaren** hilobia bisitatzera doan beteranoaren gisara. Harkaitz Cano

Hargatik zabaltzen zuen, lantzean behin, orri **erauzien** Biblia hura. Joseba Sarrionandia

Odola nahastu zitzaidan tarta pusketarekin, galanta behar zuen izan haragi zati **erauziak**. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

banan banan erauzten (3); **banan erauzten** (3); **bat erauzi** (13); **bat erauzi zuen** (3); **bat erauzten** (7); **batek erauzi** (3); **batetik erauzitako** (4); **begiak erauzi** (8); **bihotza erauzi** (3); **burua erauzi** (6); **erabat erauzi** (6); **erauzi arte** (3); **erauzi behar** (5); **erauzi ditu** (3); **erauzi du** (3); **erauzi egin** (6); **erauzi egingo** (3); **erauzi egiten** (4); **erauzi ere** (3); **erauzi eta** (42); **erauzi izan** (3); **erauzi nahi** (14); **erauzi nahi izan** (3); **erauzi nuen** (3); **erauzi ondoren** (3); **erauzi zion** (7); **erauzi zituen** (4); **erauzi zizkion** (3); **erauzi zizkioten** (3); **erauzi zuen** (8); **erauzi zuten** (4); **erauzia zegoen** (3); **erauzia zegoen eta** (3); **erauzitako zelula** (3); **erauztea eta** (3); **erauzteko eta** (3); **erauzten da** (4); **erauzten diren** (3); **erauzten ditu** (3); **erauzten eta** (5); **erauzten saiatu** (3); **errotik erauzi** (4); **eta erauzi** (4); **kaltzita erauzteko** (4); **katalogotik erauzitako** (3); **klitoria erauztea** (3); **orria erauzi** (3); **zuhaitzak erauzten** (3)

---

erauziezin *izond* ezin erauzizkoa.

Kantua lagun, Xabier Letek idatzitako hainbat hitz eta hainbat poema belaunaldi bat baino gehiagoko euskaldunen barruetan txertatu dira, irmo txertatu ere, entzuleen arimaren zokondo ezkutuenei itsatsiak geratzeraino, kanpoko eraso bortitzenetatik ere gotor babestuta, **erauziezinak** guztiz. Berria - Kultura

---

erauzketa **1** *iz* indarrez edo errotik ateratzea; ateratzea.

Sexu erasoak, bortxaketak, emakumeen sexu organoen **erauzketak**, emakumeen aurkako indarkeria eta sexu trafikoa pertsonaren eta gizadiaren aurkako krimenak dira. Berria - Harian

Batetik, piramideen eraikuntza eta bestetik metal bitxien **erauzketa**. Iñaki Heras

Berari dagokion legea formulatzea eta, honetaz guztiaz gain, sail ezberdinen arteko harremanak deskribatzea, honela sailen sailak, edo "koadroak", eratzeko: hortik letorke geruzen ugalketa, euren **erauzketa**, eurei dagozkien denboren eta kronologien berezitasuna. Xabier Arregi

Heresien **erauzketaz**. Juan Martin Elexpuru

Erauzketak egin, eta ohiko untxiei irentsarazteko lehenbailehen. Erromatar munduan paganismoaren **erauzketaren** historian, intoleranteki erlijiozalea zen kristau jaiotako Teodosio I.a enperadoreak pagano izandako Konstantino I.a konbertituari jarraitu zion, ez ondorengo belaunaldian, hirugarrenean baizik; eta hamazazpigarren mendeko Frantzian, protestantismoaren **erauzketaren** historian, denbora-tarte berbera izan zen intoleranteki erlijiozalea zen katoliko jaiotako Luis XIV.aren eta kalbinista izandako aitona Enrike IV.aren artean. Juan Garzia

Eta nork egin ditzake -Gaiztoaren eraginez ez bada- piztiak hildakoei bere parteetan egiten dizkien **erauzketa** haiek? J.M. Olaizola "Txiliku"

Al Jaafariren koalizio xiitako (Irakeko Aliantza Batua) zenbait taldek erabateko **erauzketa** gauzatu nahi dute eta lanpostu publikoetatik Saddam Husseinen garaian lanean zebiltzan pertsona guztiak kendu. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

Halaxe gertatzen da **erauzketa**-industrian, eta orobat plantazioetan, horixe baita garapen-bideko herrialdeetan eskaintza masiboki kontzentratua dagoen sektore bakarra. Koro Navarro

Ordura arte ikerketaren gaia izan den gertaeren segizio linealen lekua sakoneko **erauzketa** jokoek hartu dute. Xabier Arregi

Ez zitzaidan bururatzen ezen, begiztatu nuen **erauzketa**-metodoak aplikazio industrialik aurkitzeko modua izan balu ere, ekoizturiko nikelak Italia faxistaren eta Hitlerren Alemaniaren babeskietan eta jaurtigailuetan amaituko zuela oso-osorik. Juan Garzia

Izan ere, ondasunen produkzio prozesuetan kontuan hartzen dira **erauzketa** kostuak, ez ordea birjarpeneko kostuak, kapital naturalaz ari garenean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

erauzkin **1** *iz* adierazten den gaitik erauzten den kontzentratua.

Zundatik barrena erraza da xiringa arrunt batez **erauzkinak** urdailera helaraztea. Juan Garzia

Hormona-**erauzkinak** ekoizten zituen; nik, haatik, oso arazo zehatz batez arduratu behar nuen: aho-bidez eragingarri izango zen diabetesaren aurkako sendagai bat bilatzeaz, alegia. untxietako batek baino ez zuen izan gluzemia-jaitsierarik zaran-belar **erauzkinezko** tratamenduarekin, baina handik aste gutxira tumor kozkor bat nabarmendu zitzaion lepoan. Juan Garzia

2 *pl* eraikinen hondakinak.

Suari agorrileko eguzki samina gehitu zitzaion, ehunka hilotz zeutzan tokian, karrika eta etxeen **erauzkinetan** usteltzera utzirik. Aingeru Epaltza

Eskualde hartako gauzak ezagutarazteko alde guztietatik erabili ninduen; entzute handiko paisajeak, gazteluak, industriak, behinolako **erauzkinak** erakutsi zizkidan. Josu Zabaleta

---

erauzte *iz* indarrez edo errotik ateratzea; ateratzea.

Fernando Bernues zuzendariaren arabera, «lotura, **erauzte** eta galeraren istorio handi bat da». Berria - Kultura

Datorrela aljebra bat **erauzte** ikusezin horietatik gu askatzera. Jon Muñoz

Aitzitik, ez da hain nabarmena **erauzte**-jardueretan -energia barne-, jarduera horietan trukeak, kasurik hoberenetan, ekoizpena aldatzen den erritmo berean aldatzen baitira. Koro Navarro

Tirofijorekin bezala, Ternera izan zela eta dela gogoraraziko zaio albistegiero Josu Urrutikoetxeari, gaizkileekin eta legez kanpokoekin bakarrik erabiltzen den izen **erauzte** sistematikoan. Iñigo Aranbarri

Haren hara-honako kontsultategian, zenbaitetan oso mingarria gertatzen zen hagin **erauztea**. Patxi Zubizarreta

Niretzat literatura hitzekin jolastea da, baina batzuetan azal **erauztea** izan da. Berria - Kultura

---

erauztoki *iz* adierazten dena erauzten den tokia.

Marmol harrobiak, gatzagak, platino eta urre **erauztokiak**, ikatz meatzeak ustiatzen dira bertan handizka. Karlos Zabala

---

eraz *adlag* eroso, egoki.

Xedea da euskara baturako eta euskalkietarako joko-arau zehatzagoak ezartzea, horrela euskaldun guztiok eroso eta **eraz** ari gaitezen. Berria - Euskal Herria

---

erazle *izond* eragilea.

1 ***kausa erazle***

Nahiz afektu horren **kausa erazlea** ez den gauza hori, Poztasunezko nahiz Tristurazko afektu batek hunkitu duen edozein gauzaren kontenplatze soilagatik gauza hura maita edo gorrota dezakegu. Piarres Xarriton

Jainkoa da, bere izaeraren ezinbestez, gauza haren esentziaren nola existentziaren **kausa erazlea**. Piarres Xarriton

Zeren, gauza baten izaerari **kausa erazlearen** izaeraren beharrezkotasunetik datorrena baizik ez dagokio eta **kausa erazlearen** izaeraren ezinbestekotasunetik datorren guztia, nahitaez, gertatzen da. Piarres Xarriton

Mugagabea erraten dut, zeren ez baitu mugatzen ahal, ez existitzen den gauzaren izaerak berak, ez eta ere haren **kausa erazleak**. Piarres Xarriton

---

eraztun *(orobat **erraztun** g.er., eta **erreztun** g.er.)* **1** *iz* uztai txikia, hatzean apaingarri gisa jartzen dena, eskuarki urrezkoa edo zilarrezkoa dena.

Belarritakorik ez, **eraztun** bat baizik ez eskuin eskuko laugarren hatzean, eta lepoan ere ezer ez. Oskar Arana

Ez zitzaizkion gustatzen eskumuturrekoak eta **eraztunak** erabiltzen zituzten gizon kanpotarrak. Ramon Saizarbitoria

Izugarrizko diamantea zuen **eraztun** bat zeramala hatzean konturatu nintzen. Koro Navarro

Ezkongabea zela pentsatu nuen, ez baitzuen **eraztunik**, egunkaria irakurtzen ari zela ohartu nintzenez. Edorta Jimenez

Han, **eraztun**, diru peza gaitz eta errubien artean, Heraklitoren eskuizkribua zetzan. Juan Garzia

Vilma hil zenean, Lajosek bitxi hura eman zidan, amonaren **eraztuna**: tamaina ertaineko diamante bat platinoan ezarria, familiaren baliozko objektu bakarra. Ander Irizar

Nik gogoan dudala aitak alde egin aurretik nola utzi zuen ezkon **eraztuna** erortzen arrebaren arrain-ontzira, eta nola Tom eta Jerry apartatu egin ziren izututa, **eraztuna** uztai inerte baten gisan uretan murgildu zenean. Harkaitz Cano

Erakuslean **eraztun** bat zuen, zilarrezkoa, gailurrean kristalezko harria zuena. Lander Garro

Eraztunak distirarazi zituen eta aurpegia igurtzi zuen. Koro Navarro

Eraztun bat guztiak erakarri eta ilunpetan estekatzeko. Agustin Otsoa

Izaten ziren orobat makillajea, bitxi handi eta ikusgarriak, **eraztunak** hatz guztietan eta arropa ezohikoez bere burua era asmotsu batez apaintzeko erraztasuna. Oskar Arana

Asuero erregearen izenean zeuden idatziak eta erregearen **eraztunaz** zigilatuak. Elizen arteko biblia

Atea zabaldu, eta ezkaratzean obispoa sartzen ikusi zuenean, eskuari heldu eta muin egin zion hark ere **eraztunean**. Inazio Mujika Iraola

Hau esanik, faraoiak bere behatzetik **eraztuna** atera eta Joserenean ezarri zuen. Elizen arteko biblia

-Ba al dakizue zergatik erantzi dudan **eraztuna**? -galdetu zigun gero-. Bernardo Atxaga

Orduan, erregeak bere **eraztuna** kendu eta Hamani eman zion, juduen kontrako gutunei zigilua ezartzeko. Elizen arteko biblia

Hatzez ukitzen zuen eskuin eskuko erdiko hatzean zeukan marra sakona, arestian kendutako **eraztun** baten arrastoa. Jose Morales

-Hona hemen zeure eta **eraztuna** hatzean daramaten guztien mirabea. Patxi Zubizarreta

Neskazaharra seguraski; **eraztun** ugari erietan, baina ezkontzakorik ez ageri. Aingeru Epaltza

Emakumeak lepoko bat atera zuen orduan, bostehun eta hirurogeita hamar **eraztunez** osatua, eta anaien **eraztunak** ere zintzilikario hartan erantsi zituen. Patxi Zubizarreta

Eskolan euskaraz egitea debekatuta dago, eta debekua hausten duenak **eraztuna** jantzi beharko du, egin duen bekatu edo krimenaren seinale. Joxerra Garzia

Amaordeak hiru gurari betetzea ahalbidetzen zuen **eraztuna** oparitu zion. Martin Anso

Eraztunetik argizarira irudia inprimatzen den moduan, **eraztunean** desagertu gabe. Imanol Unzurrunzaga

Olatz zen orain galdezka, **eraztunez** betetako bere ezker eskuaz zigarroa pizten zuela sofan erdi etzanda. Harkaitz Cano

Koaderno horia lokarri urdin batez itxia zegoan, eta lokarriaren begiztaren lakrea **eraztunaz** zigilatuta. Xabier Olarra

Guztia espero bezala joan zen: meza, sermoia, maitasun zina, **eraztunak**... Joan Mari Irigoien

Generalitateak berak ***Eraztunen*** *Jauna* filmaren azken atalaren bikoizketa diruz lagundu arren, bideoklubetan zabalduriko DVDak ez du katalanezko bertsioa jasotzen. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Faraoiak bere hatzetik **eraztun** zigiluduna atera eta Joseri ipini zion. Jose Antonio Mujika

Berehala, hoztu baino lehen, ezker eskutik ateratako **eraztun** lodiaren zigilua jarri zion gainean. Joxemari Urteaga

Ezagutzen ez nion **eraztun** lodi bat zeraman hatzean, harri gorri borobil batez hornitua. Bernardo Atxaga

Liuba beherantz begira zegoen eta bere baitara bildurik jirarazten zuen hatzean zeraman **eraztun** txikia. Jose Morales

Alain ihesi joan zen, kandela iraulirik, **eraztun** preziatu bat iruditu zitzaiona ateraz andre alajari hatzetik. Juan Garzia

Frak dotorea jantzita, urrezko erloju katedunarekin eta zigilu-**eraztun** gorri batekin, Maria Sackett ondoan duela ezkontzera doa. Lopez de Arana

Esmeralda eta rubiekiko **eraztuna**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zituen berekin ekarri, halere, ez lapis lazulizko paparreko orratza, ez olibinozko besokoa, ez eta topazio eta amatistadun **eraztunak** ere. Mirentxu Larrañaga

Berehala proposatu zizkidan dendako pitxi eta trapu batzuk: fantasiazko **eraztunak**, ukaraikoak, belarritakoak (motx eta luxe), poltsak. Txillardegi

Etsaiek urrezko **eraztunak** zeramatzaten, basamortuko jendea zenez. Elizen arteko biblia

Ni luzaz gelditu nintzen han eserita, gezurrezko **eraztunari** begira. Ander Irizar

Haren esku zuhurrean dirdir zegien bi errubi zurbil-nahasiz txertaturiko **eraztun** urre berdezko batek. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskuineko eskuko **eraztun**-hatza hautsi zuen Bolonian, eta zakur batek bi aldiz egin zion hozka. Jon Muñoz

Hilabetea eman nuen harengana joan eta ondoan eserita, masaila eta eskuak ferekatuz, [...] hatz txiki nirearen antzera laburxko eta kurbatuaren azkeneko falangean ageri zuen **eraztun**-zigilua haztatuz. Joxan Elosegi

Belarritako luzeak zeramatzan, kate bat idunean, orratz bat paparrean, **eraztun** sortak ezker eskuko bi hatzetan eta eskuineko batean. Amak perfume lurrintsudun botilatxoak ekartzen zizkion alabari, eta zeta kaskarreko galtzerdi ziztrinak, eta beira zatitxo berde-gorriz egindako **eraztun**-sortak. Karlos Zabala

Eraztunek sugar txikiak pizten zituzten, urdinak, berdeak, horiak, moreak, **eraztun** ontzi karratu handietan. Karlos Zabala

Eraztun-formako muskulu baten -muskulu ziliar izenekoaren- barruan kokaturik dago begiaren kristalinoa. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezin baita baliogabe utzi erregearen izenean idatzia eta errege-**eraztunaz** zigilatua dagoen agiria. Elizen arteko biblia

Giltzak biltzen dituen uztaitxoan hatza sartzean aliantza-**eraztun** bat eta konpromiso inexistente bat imajinatzen baitute. Harkaitz Cano

-Bai, duela lau urte -eskuina altxatu eta urrezko eztei-**eraztuna** erakutsi dio Imanoli-. Iban Zaldua

Oharkabean bezala, ezker eskuko eriak eskuineko hatz nagira eraman nituen, ezkon-**eraztuna** ukitzeraino. Aingeru Epaltza

Amaren ezkontza-**eraztuna** saldu duzu droga erosteko? Eider Rodriguez

Nola ez handietsi Zorobabel, Jainkoaren eskuan zigilu-**eraztun** bezala izan zena! Elizen arteko biblia

5 irud/hed

Belarri zuloan **eraztuna**. Gotzon Garate

Aranzadi Zientzi Elkarteko kidea da, eta Txingudiko paduran dihardu lanean, hegazti migratzaileei **eraztunak** jartzen. Berria - Harian

Sudur-mintzetatik **eraztunez** lotutako txekor gazteak indar guztiak galtzen dituen antzera, pentsamendu, asmo eta gogo guztiak galdu zituen Williamek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neskak esan dio oso ondo gelditzen zaiola **eraztuna** sudurrean, bolatxoa baino hobeto. Eider Rodriguez

Gehiago dago, gainera, esan zuen puruen **eraztunak**, bitolak, lupaz begiratuz. Jon Alonso

Saturnoren **eraztunen** lehen irudia bidali du Cassini zundak. Berria - Gaiak

Uranok ere **eraztun** urdin bat du, eguzki sistemako bigarrena. Berria - Gaiak

Pipari bertze hatsaldi bat egin, kokotsa jaso, eta kezko hiru **eraztun** biribildu zituen, airean goiti joan zirenak. Joan Mari Irigoien

Baginako **eraztuna** plastikozko uztai txiki eta malgu bat da, leuna eta biribila, bost cm-ko diametroa dauka eta 4 mm-ko lodiera. Luis Elberdin

Egin urrezko lau **eraztun** eta erantsi [kutxaren] lau oinen ertzetan. Elizen arteko biblia

Haren musuen ahogozoa ezpainetan oraindik, haren ahotsaren hotsa belarrietan oraindik, haren besarkada estuaren **eraztuna** gerriaren inguruan. Josu Zabaleta

Gu gauden uharte biribil hau oraindik segurua da, baina hodeiak hurbiltzen ari dira, eta inguratzen gaituen arriskutik bereizten gaituen **eraztuna** mehetzen eta mehetzen ari da egunetik egunera. Josu Zabaleta

Oinarriaren azpian **eraztun** modukoa jarri zioten altxagarri bezala. Santiago Iruretagoiena

Antzekoa den orok zerbaitekin du antza; kasu honetan **eraztun** hirutasuna dugu. Imanol Unzurrunzaga

77-100 irabazi dio New Jerseyri eta **eraztuna** irabazteko hautagaitza aurkeztu du. Berria - Kirola

Nahitaez irabazi behar du, NBAko **eraztuna** irabazteko lehiatik kanpo geratu nahi ez badu. Berria - Kirola

6 irud/hed (izenondo eta izenlagunekin)

Dudley sudurra beiraren kontra zuela zegoen, sugearen **eraztun** marroi distiratsuei begira-begira. Iñaki Mendiguren

Zuhaitz baten enbor ebakia legez **eraztun** kontzentrikoz osaturiko labezomorro beltz erraldoien formako oskolak zituzten flexoak zeuden mahaien gainean barreiaturik. Harkaitz Cano

Bazirudien besoen inguruan lurrinezko **eraztun** pisutsu batzuk kiribilduta zeuzkala. Lopez de Arana

Apar distiratsuzko **eraztun** zabal batek osatzen zuen zurrunbiloaren ertza. Koro Navarro

Oholak eta zehar-egurrak urreztatu egin zituzten eta urrezko **eraztunak** egin, hauetatik zehar-egurrak pasarazteko. Elizen arteko biblia

Ataria liho eta muselinazko oihalez apaindua zegoen; liho eta purpurazko lokarriz zeuden lotuak urrezko eta zilarrezko **eraztunetara**, eta marmolezko eta hartzurizko zutabeetatik esekiak. Elizen arteko biblia

Zigarreta bat piztu, arnasa sakon hartu, eta kezko **eraztunak** bota zituen. Koro Navarro

Zuzi bat besoa luzatuta bizkor birarazten baldin bada, suzko **eraztun** bat ikusiko da, eta ezin bereiziko dira garrak segidan dituen kokalekuak. Josu Zabaleta

Gerriko gantzazko **eraztun** trinkoak aztaparkatzen niozkan. Itxaro Borda

Mr. Goldstein-i begira geratu zen, gogoetatsu, ke urdinezko **eraztun** baten beste aldetik. Lopez de Arana

7 irud/hed (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Cinnamon-raisin **eraztun**-opil bat eskatzeko asmoa neukan. Oskar Arana

Laurok atzeko lorategian eserita geundelarik **eraztun**-opilak eta izokin keztatua jaten. Oskar Arana

Saskibaloi partidan, Pepponek uste osoz esan zuen **eraztun** jokoak baduela, balio atletiko nabarmenaz gain, halako grazia fin-fina ere, eta harrituta zegoela egitarauan ez zegoelako sartuta **eraztun** jokorik. Koldo Biguri

8 irud/hed (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ke-**eraztun** bat egin zuen, pentsakor. Fernando Morillo

Sabai intsonorizatuari so gelditu nintzen neure ahotik ke-**eraztunak** ateratzen ziren bizkitartean. Aingeru Epaltza

Lehenik, aurpegira zuzendu zion gailuaren muturra, eta gero, segurtasun-**eraztuna** askaturik, zuri koloreko apar txorrota bota zion begietara, presio eta prezisio handiz. Josetxo Azkona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste bi eraztun (3); **beste eraztun** (5); **beste eraztun bat** (5); **bi eraztun** (12); **burdinazko eraztun** (3); **eraztun bana** (4); **eraztun bat** (35); **eraztun bat aurkitu** (3); **eraztun bat eta** (3); **eraztun bat guztiak** (4); **eraztun batean** (3); **eraztun batek** (4); **eraztun baten** (7); **eraztun batez** (3); **eraztun batzuk** (3); **eraztun egin** (4); **eraztun eta** (12); **eraztun gehiago** (3); **eraztun hau** (3); **eraztun horiek** (3); **eraztun txiki** (3); **eraztun urdin** (4); **eraztun urdin bat** (3); **eta eraztun** (10); **hiru eraztun** (7); **lau eraztun** (7); **milioi eraztun** (3); **urrezko bi eraztun** (3); **urrezko eraztun** (5); **urrezko lau eraztun** (4); **zigilu eraztun** (4); **zilarrezko eraztun** (9); **zilarrezko eraztun bat** (3); **zuen eraztun** (4)

baginako eraztuna (4); **baginarako eraztuna** (3); **baina eraztuna** (3); **bere eraztuna** (3); **duen eraztuna** (3); **edo eraztuna** (3); **eraztuna atera** (5); **eraztuna da** (3); **eraztuna**

eman (6); **eraztuna ere** (3); **eraztuna eta** (11); **eraztuna hartu** (4); **eraztuna hatzean** (4); **eraztuna irabazi** (3); **eraztuna irabazteko** (12); **eraztuna jantzi** (5); **eraztuna kendu** (6); **eraztuna lortzeko** (4); **eraztuna oparitu** (3); **eraztuna probatu** (3); **eta eraztuna** (14); **ezkon eraztuna** (5); **ezkontza eraztuna** (4); **gabe eraztuna** (3); **nbako eraztuna** (6); **nbako eraztuna irabazteko** (4); **nuen eraztuna** (3); **urrezko eraztuna** (7); **zen eraztuna** (3); **zuen eraztuna** (6)

eraztunak eta (14); **eraztunak eta biraka** (4); **eraztunaren berri** (3); **eraztunaren eramailea** (5); **eraztunaren eramaileak** (4); **eraztunen jauna** (10); **errege eraztunaz** (3); **eta eraztunak** (7); **eta g eraztunen** (3); **g eraztunen** (3); **hiru eraztunen** (3); **planetaren eraztunak** (4); **saturnoren eraztunak** (7); **saturnoren eraztunak eta** (4); **saturnoren eraztunen** (6); **urrezko eraztunak** (8)

---

eraztundun *izond/izlag* eraztuna duena.

Top gorri batek agerian uzten zion xilko **eraztunduna**, eta indiar moldeko gonaren alozak ur-jauzi koloreanitz baten gisara barreiatzen ziren haren zango sendoen gainera. Aingeru Epaltza

Gizonak arkatzari heltzen zion axolagabe, eta **eraztundun** behatzetatik izerdi tantak erortzen ziren paperera. Monika Etxebarria

Baina gizonak, **eraztundunak** batez ere, ezin zituen begi bistan ikusi nire aitak. Ramon Saizarbitoria

---

eraztuntzar *iz adkor* eraztun handia.

- **Eraztuntzar** hau gogoan diat, izebak harekin lo ere egiten zuela erraten zian Ximurrak -nik-. Aingeru Epaltza

---

erbaildu ik **herbaldu**.

---

erbailtasun ik **herbaltasun**.

---

erbaltu ik **herbaldu**.

---

erbestaldi ik **erbestealdi**.

---

erbeste **1** *iz* atzerria, eskuarki erbesteratze lekua; atzerrialdia. ik **deserri**.

Urtemuga hau dela-eta, Eusko Jaurlaritzak demokraziaren eta askatasunaren alde borroka egin zuten pertsona guztiei eta diktadura frankistaren jazarraldia, **erbestea** eta heriotza jasan zuten guztiei omenaldia eskaini nahi die. Berria - Ekonomia

Ziliguetako jaun Gaspar Ezpeleta, azkenik, ez zen gutiago izan: hark ere **erbestea** hautatu zuen. Aingeru Epaltza

Askatasun nahia **erbestearekin**, kartzelarekin, torturekin, heriotzarekin ordainarazten digute. Berria - Euskal Herria

Erbestean bizi izan zen, Sobiet Batasunean eta Espainian. Fernando Rey

Jakina, hori izan behar zuen, Desertuaren D-an nengoela: erreferentziarik gabeko leku habitaezin batean, desolamendua jaun eta jabe zen **erbestean**. Bernardo Atxaga

Mexikoko eguzkiak ezin izan zion lehortu **erbesteak** ariman utzitako mantxa. Bernardo Atxaga

Sara Parisen geratu beharrean, ordea, erbesteratuen arteko **erbestean**, [...] Espainiara alde egitea erabaki zuen. Felipe Juaristi

Guztiek **erbestean** galdua edo gerran hila dela uste dute. Joxean Agirre

Ume denborakoak ematen ditu lehenik eta behin, gaztarokoak gero, kartzelakoak ondoren eta **erbestekoak** azkenik». Berria - Kultura

Tomassok, bai, **erbesteko** urteak igaro baitzituen bertan, Leviathan idazten. Felipe Juaristi

Erbesteko Eusko Jaurlaritza. Berria - Euskal Herria

Jeroboam ezpataz hilko da, eta Israel herria **erbestera** eramango dute, bere lurraldetik urrun. Elizen arteko biblia

Gerard Latortue behin-behineko lehen ministroak agintari ohiari **erbestetik** indarkeria sustatzen ari izana [..] leporatzen dio. Berria - Harian

Ondoren, **erbestetik** itzulitako guztiak Jerusalemera bil zitezela aldarrikatu zuten Judan eta Jerusalemen. Elizen arteko biblia

Baina hauek ez dute orain aberriaz gozatzen eta gero **erbestera** joan beharko dute. Askoren artean

1936eko gerla zibilak **erbestera** igorri zuen, familia osoarekin. Herria

Egiptoko herri, presta **erbesterako** hornidura: eremu bihurtuko da Menfis, bizilagunik gabeko lur erraustu. Elizen arteko biblia

Mundua **erbestetzat** hartzen duenean. Felipe Juaristi

Bazen Susan judu bat, Mardokeo izenekoa, behiala Nabukodonosor errege babiloniatarrak Jerusalemen hartu eta **erbeste** hartara eramana zuena. Jose Antonio Mujika

Ia bizitza osoko **erbestetik** itzuli, eta hemendik kanpo urtetan amestutako zure Euskadi nahi zenuen.. Xabier Montoia

Erbestearen amaiera nahi dut / itzultzearekin berpizteko. Askoren artean

Erbestearen garratza uzten du aho sabaian, negua baitu laranjak aberri eta amets. Joxerra Garzia

-Noiz bihurtu genuen gure mundua **erbeste**? -galdegin nion Tomassori. Felipe Juaristi

Heriotza orain ene aurrean dago, gerla ondoan **erbestetik** etxeratzen dena bezala. Patziku Perurena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Handik urte askora, **erbeste** luzearen ostean, milaka ahaleginen eta istorioren ostean, *Euskaldunon Egunkaria*-k, Martin Ugalderen egitasmo kutunak, fabrika zaharrean hartu zuen egoitza. Berria - Harian

Erbesterik latzena. Xabier Montoia

Hilabete haietako nire biatikoa zen, Hans Castorp-ek harako Xarma Mendi hartako **erbeste** magikoan bizi zuen historia denboragabea. Juan Garzia

Linbo politikoa da egun Europako Batasuna, etxean huts egiten duten bigarren mailako politikariez libratzeko urrezko **erbestea**, ezkerra eta eskuinaren muga galtzen den eremu lanbrotsua. Berria - Mundua

Bi izen datozkit gogora: Mikel Azurmendi eta Ramon Etxezarreta, bata kanpoko **erbestera** eta bestea barruko **erbestera** kondenatuak. Joxerra Garzia

Burgosko kartzelatik Buenos Airesko **erbestera**. Jokin Urain

Londreseko **erbeste** gazi-gozoan, **erbeste** hezko hotzean, **erbeste** zaurigarrian. Felipe Juaristi

Neuk aterako zaitut bizi zaren urrutiko **erbestetik**, zeure seme-alabekin batera.

Ninibeko **erbestean** bizi den Tobitek ikusmena galtzen du. Jose Antonio Mujika

Asiriako **erbestera** ekarri nindutenean, Ninibera etorri nintzen. Jose Antonio Mujika

Atzerriratuek Errusia maite zuten, tsarraren politikak aldi baterako **erbestean** bazeuzkan ere. Karlos Zabala

Euskal **erbestearen** kultura berreskuratzeko asmoz egindako ikerketaren ondorioa da liburua. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mundakako abadea Kuban izan zen urteetan, haren **erbeste** urteetan, hain zuzen. Edorta Jimenez

Musika arrotza joka, **erbeste** musika joka, gerraren penei airezko hesia jarri nahian. armeniarren eliza otoitzak; arabiarren poesia; greziarren negarra; sefardien **erbeste** eresiak. Felipe Juaristi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Indigenek barne **erbeste** mingotsean segitzen dute, eta horretan hilko dira. Octave Cremazie, aldiz, kanpo **erbestean** hil zen. Berria - Mundua

Idazleak lehen pertsonan kontatzen digu, faxismoaren kontra borrokatzeagatik, zer nolako zigor- **erbesteak** nozitu behar izan zituen. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aristide erbestera (3); **batek erbestera** (3); **batek erbestera jo** (3); **erbestean bizi** (14); **erbestean bizi da** (3); **erbestean egin** (3); **erbestean egon** (8); **erbestean eta** (5); **erbestean hil** (4); **erbestean hil zen** (3); **erbestean izan** (4); **erbestean zegoen** (3); **erbesteko eusko** (5); **erbesteko euzko** (4); **erbestera bidali** (5); **erbestera doa** (4); **erbestera ekarri** (3); **erbestera eraman** (5); **erbestera eramango** (4); **erbestera ihes** (3); **erbestera jo** (10); **erbestera jo behar** (5); **erbestera joan** (19); **erbestera joan behar** (7); **erbestera joan zen** (4); **erbestera joango** (5); **erbestetik barne** (3); **erbestetik barne minez** (3); **erbestetik etorritako** (4); **erbestetik itzuli** (12); **erbestetik itzuli eta** (3); **ere erbestera** (3); **eta erbestea** (5); **eta erbestean** (10); **eta erbesteko** (3); **eta erbestera** (4); **eta erbestetik** (3); **familiak erbestera** (3); **familiak erbestera jo** (3); **frantziako erbestetik** (3); **herria erbestera** (3); **herria erbestetik** (3); **milioi batek erbestera** (3); **urte erbestean** (3); **zen erbestean** (3)

---

erbestealdi **1** *iz* erbestean ematen den denbora.

Hirurogeita zortzi urteko **erbestealdia** izan zuten aitasantuek Erromako beren egoitzatik kanpoan. Joan Mari Lekuona

Gutun bat ere bidali digu Babiloniara, esanez: Luzarorako da **erbestealdia** ! Elizen arteko biblia

Amorragarria egingo zitzaion Triesteko **erbestealdia** , Espainiatik horren urruti, ikusirik ezin zuela ezer egin iloba Isabelek usurpatutako koroa eskuratzeko. Anjel Lertxundi

Biziki hunkitu zuen aitaren **erbestealdia** partekatzera zihoazen bi gazte haien egoerak. Karlos Zabala

Zigorraren maila, erruaren araberakoa betiere, ez zetzan animalia gisa egin beharreko **erbestealdiaren** luze-laburrean, arima horrek piztia nazkagarriren baten gorputzean egin behar zuen egonaldi luze edo labur berean baizik. Josu Zabaleta

Erbestealditik libre gelditu direnak zoritxar handian eta egoera lotsagarrian daude Juda eskualdean. Elizen arteko biblia

Xerxesen erregealdiaren hasieran, salaketa bat idatzi zuten **erbestealditik** itzulitakoen etsaiek, Judako eta Jerusalemgo bizilagunen aurka. Elizen arteko biblia

Neure **erbestealdiko** zoritxarra gogora ekartzea edarimin pozoitsua da niretzat. Elizen arteko biblia

Joiakin erregearen **erbestealdiko** bosgarren urtea zen. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlalgunekin)

Euzkadi murriztua zen Bizkaia txikitu hartan ageriko gerra amaitu ostean, Juan Duñabeitiak **erbestealdi** luze bati aurre egin behar zion artean. Edorta Jimenez

1904 urtearen amaiera aldera irten zen Joyce Dublindik, eta bere **erbestealdi** borondatezkoaren lehen hilabeteetan idatzi zituen gainerako kontakizun gehienak. Irene Aldasoro

Joka begirunez munduko **erbestealdian** bizi zareten bitartean. Elizen arteko biblia

---

erbestekotasun *iz* erbestekoa izateko nolakotasuna.

Gizonezkoek, urrutikoa hobesteko dugun joerarekin, ez zirudiela hemengoa zioten eta **erbestekotasun** horrek erakargarriago egiten zuela. Joxean Agirre

---

erbesteleku *iz* erbestea.

«Batzordeak niregan jarritako konfiantzak poztu egin nau», aditzerat eman zuen Miamiko (AEBak) bere **erbestelekutik** . Berria - Mundua

---

erbesteratu, erbestera, erbesteratzen **1** da/du *ad* erbestera joan; erbestera eraman.

Praga kanpotarrak etxekotu eta etxekoak **erbesteratu** egin dituen hiria da. Felipe Juaristi

Siberian **erbesteratua** eman zuen garaitik. Karlos Zabala

Lasaitasun publikoa hondatzen duena, legeak obeditzen ez dituena [...] gizartetik alboratu egin behar da, **erbesteratu** , esan nahi dut. Juan Martin Elexpuru

Europatik alde egitean Jesus Galindez nora-eta Leonidas Trujillo diktadore badaezpadakoaren irlara **erbesteratu** zen. Edorta Jimenez

Bi urteren buruan, libre berriro, Miamira **erbesteratu** zen eta, han, Jeanette ezagutu zuen. Edorta Jimenez

Baina atzerriko elkarte sekretu bateko kidea zela azaleratu bezain laster, Irkutskera **erbesteratzeko** agindua jaso zuen. Karlos Zabala

Bobby Fisher xake jokalari ohia **erbestera** dezake Japoniak. Berria - Kirola

Zizeron **erbestera** zezaten lortu zuen; haren etxea lurrarekin berdindu beraren begien aurrean, eta hondamendia eta heriotza zin-opa zien haren adiskide guztiei. Juan Garzia

2 irud/hed

Kutxetako zuretik, kalkulu-orrietara igaro ziren ikurrak, eta, horrenbestez, merkataritzatik aljebrara **erbesteratu** . Jon Muñoz

3 (era burutua izenondo gisa)

Gudari **erbesteratuei** eta beste aterpetuei laguntzeko Euzko-Anaitasuna izeneko erakundea sortuko du. Edorta Jimenez

Gizarte-ingurune atzerritarrean sartzen den kultur elementu **erbesteratu** batek jokaturiko paper suntsigarri horren adibideak dagoeneko ezagutu ditugu. Iñaki Mendiguren

4 (era burutua izen gisa)

Erbesteratu baten alaba nauk. Karlos Zabala

erbesteratu horiek errusiarrak dira eta eskubidea dute beren herriaren alde borrokan egiteko! Karlos Zabala

Luzaroan eta herri-minez Buenos Airesen, Caracasen edo Habanan biziko diren **erbesteratu** eta iheslari horien giroetan. Edorta Jimenez

Azken berrehun urteotako euskaldun emigrante eta **erbesteratuekin** zazpi nazio egin daitezke. Joseba Sarrionandia

Balizko atxiloketa edo **erbesteratzea** saihesteko. Alberto Ladron Arana

-Siberiako **erbesteratuena** . Karlos Zabala

---

erbesteratze *iz* erbestera joatea edo bidaltzea.

Erbesteratze eta ondasungabetzeak. Juan Martin Elexpuru

Erbesteratzea (Paradisutik, Siondik) funtsezko mitoa da Biblian, beharbada erlijio guztietan. Xabier Olarra

Balizko atxiloketa edo **erbesteratzea** saihesteko. Alberto Ladron Arana

Gavard, berriz, Florent bezala, **erbesteratzearekin** zigortu zuten. Karlos Zabala

Gauza garrantzitsu asko ikasi nituen **erbesteratze** espiritual hartan. Xabier Aranburu

Horrela baizik ez dio urtebeteko **erbesteratze** honi akabaila emanen. Aingeru Epaltza

Dena galtzea gertatu beharko litzateke, legeak ezarritako **erbesteratzeak** gizartearen eta hiritar gaizkilearen arteko lokarri guztiak desegiten dituenean. Juan Martin Elexpuru

Estepa hedadura neurrigabe hura, mendebaldetik ekialdera ehun eta hamalau gradu baino gehiago hartzen dituena, **erbesteratze** eta atzerriratze lurra da gaizkileentzat. Karlos Zabala

Erbesteratze agindua honelakoetan eman behar litzatekeela esan daiteke: [...]. Juan Martin Elexpuru

Erbesteratze - eta galera-sentipenek eta oroiminak mundu mota bat, berak galdutako benetako munduaren ordezko bat eskatzen bazuen ere, [...]. Xabier Olarra

Bakardade eta **erbesteratze** itxura ematen zuen ilunabarrean irteteak, bizkarrean eskolako poltsak hartuta, lurrean itzal luzeak, istorio bateko pertsonaiak urrunerako bidaia batera abiatzen direnean bezala. Juan Kruz Igerabide

---

erbestetar *iz* atzerritarra.

Geure Aberrian geu izan gaitezela inongo **erbestetarren** aginpide gabe: geure familiekin, geure zaletasunekin, geure erlijioarekin, geure lanbideekin. Jokin Urain

Zergatik erbestean horren abertzale eta aberrian horren **erbestetar** izan gara? Jokin Urain

---

erbestetu, erbestetzen **1** da/du *ad* erbesteratu.

Aurten beraz euskaldun bakar bat (eta pilotari eskasa) izanen da txapelketan, Kebekerat **erbestetuetaz** gain. Herria

2 (era burutua izen gisa) erbestera bidalitako pertsona.

"Zoaz gaur berton Sofoniasen seme Josiasen etxera eta hartu Heldai, Tobias eta Jedaias, Babiloniatik itzuli diren **erbestetu** horien emaitzak. Elizen arteko biblia

Erbestetuak Jaunak herrira itzularaziko. Elizen arteko biblia

Erbestetuei deia. Elizen arteko biblia

---

erbi **1** *iz* ugaztun karraskaria, belarri-luze eta isats-motza, atzeko hankak aurrekoak baino luzeagoak dituena eta jauzika arin ibiltzen dena *(Lepus timidus).*

Noizean behin **erbi** bat edo untxi bat begiztatzen genuen. Bernardo Atxaga

Egun hartan ehizara joan zen inuitak bost **erbi** zuri ekarri zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erbiek beti izan dute alai eta txoro ospea. Bernardo Atxaga

Erbi batena bezalako ebakidura du goiko ezpainean. Anjel Lertxundi

Begiak irekita egiten dute lo **erbiek**. Berria - Kirola

Ehizaldiaren hasieran Lepic jaunak **erbi** bat botatzen badu, esaten du: [...]. Itziar Otegi

Lehen **erbitan** eta galeperretan aritzen ziren, orain ez dago izpirik. Pako Aristi

Errusian, **erbi** bat bidazti baten bidean gurutzatzea ezbeharren bat hurbil dagoen seinale da. Karlos Zabala

-Hik sekula ez duk atzeko hanketatik **erbirik** harrapatu! -bota zion koinatuak. Jose Morales

Bi **erbi** harrapatu nahi duen zakurrak, biak galdu. Gotzon Garate

Baina non gutxiena uste, hantxe **erbiak** brixt. Patxi Ezkiaga

Azeria bezain maltzurra da eta **erbia** bezain izutia **Erbia** bezain belarri-erne. Aingeru Epaltza

Ez da erraza ni hiltzea, nik anaia bat baitut lehoia dena eta mendian bizi dena, eta lehoi horren barruan **erbi** bat dago, eta **erbiaren** barruan uso bat; uso bat arrautza batekin. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arboletan zintzilik jarriak zeuden **erbi** larrutuak eta oilo lumatuak, eltzeetan sartzeko zain-zain. Patxi Ezkiaga

Peppone ere baimenik gabe ehizan ari zen bazter haietan eta berak ere **erbi** polit bat zeukan zorroan. Koldo Biguri

Goilautadatik jaitsita, itsasertzeko lautadetan **erbi** artikoak harrapa zitzaketen, eta zorte pixka batekin karibu bat edo beste ere bai. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zegoen **erbi**-ezpainaren ebakuntza baten aztarnarik. Ibon Uribarri

Nor bere zoroak bizi du: bati izugarri gustatzen zaizkio **erbi**-zakurrak; beste bat musikazale amorratua da. Jose Morales

Zola-gainean etzanik zegoen **erbi**-txakurrari. Joan Mari Irigoien

Upel zaharrak salduta irabazi txiki batzuk lortzen ditut; baita **erbi**-larruak ere, eta dirua amari entregatzen diot. Itziar Otegi

Noek Ararat mendian libraturikako **erbi** bikotea gogoan balu bezala. Joan Mari Irigoien

Orain, joan zaitez Pepponek apaizetxean utzitako **erbi**-eltzeko goxoa jatera, zurea da eta. Koldo Biguri

Bere mahaia eta aterpea onar genitzan tematu zen, eta guk amore eman genuen **erbi**-festan partaide izatetik salbatu gintuen gizona ez minberatzeko. Bernardo Atxaga

Haren eskumenean, urdaiz beteriko txahalkia, gibel patea eta **erbi** patea, lurrontzi hori batzuen barruan. Karlos Zabala

4 ***erbi lo*** *(orobat* ***erbilo****)* adi egonez egiten den loa.

Hitzordura garaiz iritsi beharraren urduritasunez egindako **erbi**-loa! Anjel Lertxundi

Loa **erbiloa** da gauean. Jokin Urain

Eskailera sistema zela eta, kontrarioak banan-banan elkar akabatuz, bera, **erbi-lotan**, finalaren eguna noiz iritsiko zain. Berria - Kirola

Gaur egun, **erbi-lotan** egon beharrean, enpresariek beste aldera begiratzen dute. Berria - Kirola

5 ***erbi txakur*** *(orobat* ***erbi-zakur*** *eta* ***erbizakur*** *g.er.)*

2005. urtearen hasieran lehen aldiz txakur bat klonatzea lortu zuela jakinarazi zuen, eta Snuppy izeneko Aftanistango **erbi-txakurra** aurkeztu zuen. Berria - Gaiak

Aingira baten gisa irristatu zen mahaipera, **erbi txakurraren** gisa igaro zituen besaulkiak. Josu Zabaleta

Isildu gabe hitz egiten zuen Krimeako udazkenei buruz -han sekula izan ez zen arren-, **erbi-txakurrei** buruz -horrelako txakurrik sekula ikusi ez zuen arren-, eta beste gauza askori buruz. Jose Morales

-Apustu egiten diat baietz **erbi-zakurra** zaldia baino lasterragoa izan. Koro Navarro

Ez dut etxean aztorerik eta **erbi-zakurrik**; ongi ikasitako eperren bat eta pututx bilazaleren bat, horixe. Patxi Ezkiaga

Inoiz ikusi duzue **erbi-txakur** bat Loratégietako hesiak saltatzen? Julen Gabiria

Klase askotako zakurrak ziren gainera: zakur handiak, azeri zakurrak, **erbizakurrak**, otsozakurrak. Patziku Perurena

Uharte batean **erbizakur** zilarrezkoak ikusi nitian urrezko basurdeak akabatzen. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi erbi (3); **edo erbi** (3); **erbi bat** (13); **erbi batek** (4); **erbi batek zeharkatu** (3); **erbi edo** (3); **erbi loa** (5); **erbi lotan** (8); **erbi zakur** (3); **erbia bezain** (4); **erbia bezain izutia** (3); **erbia eta** (4); **erbiak eta** (3); **erbiaren atzetik** (3); **eta erbi** (8); **eta erbia** (6); **eta erbiaren** (4)

---

erbikume *iz* erbiaren umea.

Beste behin, Greccion bizi zela, lakioz bizirik harrapatutako **erbikume** bat ekarri zion anaia batek. gure aita **erbikume** bat laurogei metrora seko uzteko gauza zelako.

Askoren artean

Erbikumeak, aita onberaren deia entzunik, haren magalera egin zuen salto bizi-bizi. Askoren artean

---

erbinude 1 *iz* ugaztun haragijalea, txikia, bizkarra arrea eta sabela argia dituena *(Mustela nivalis* etab.).

Erbinude baten gisa zebilen batetik bestera, orain basoak garbitzen, gero zapia mostradore gainetik pasatzen, hurrengoan ardoa botila batetik bestera pasatzen. Anjel Lertxundi

Lagunek bazekiten ez zela katagorri bat, eta bazekiten era berean nik banekiela animalia hura ez zela katagorri bat, ez eta untxi edo erbi edo **erbinude** bat ere, ez behintzat benetakoa. aditzen nuen usoak usategian urduri zeudela, geltokiko burua joan zenean baino urduriago, kaiolan **erbinude** bat edo lepahori bat sartu balitz bezala, halako ikaraz ari ziren hegalka eta urrumaka. Karlos Linazasoro

Norak dibertiturik begiratu zion, hain berea zuen **erbinude** baten arintasun urduria begi-ninietan jolasti: [...]. Anjel Lertxundi

Bran erabat suspertuta zutitu, gorputza astindu eta abian jarri zen **erbinudearen** lorratzak usnatzen. Joanes Urkixo

2 (izenondoekin)

Bere itxuragatik **erbinude** arin eta azkarra -*belette* bat alegia- gogorarazten duena. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan)

Erbinude-itxurako gizon bat ere bazen han, bere urrezko hortzekin. Lopez de Arana

Begi baten behealdeko ertz eroriak itxura xelebrea ematen zion bere **erbinude**-aurpegiari. Lopez de Arana

5 ***erbinude zuri*** erbinudearen antzeko ugaztuna; bere ilea, arrea udan, erabat zuri bihurtzen da neguan, isatsaren muturra izan ezik *(Mustela erminea).*

Kale-kantoiko taberna baten aurrean gelditu zen eta arreta handiz begietsi zuen hautsez grisatutako **erbinude zuri** disekatuen talde bat, erakusleihoaren erdian kokatua. Lopez de Arana

Erbinude zuriz apaindutako kapa. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erbinude alfabetiko honen** (3); **erbinude bat** (5); **erbinude baten** (3)

---

erbitxo *iz adkor* erbia eskuarki txikia.

Lepic jaunak beste langa bat saltatu du, ondoko alpapa-soroa arakatzeko; izan ere, asko harrituko bailitzateke bertan **erbitxoren** bat topatuko ez balu. Itziar Otegi

Gizon dohatsuak, hunkiturik, esan zion: "Zatoz nigana, anaia **erbitxoa**". Askoren artean

---

erbizakur ik **erbi 5**.

---

erdain ik **erdaindu 3**.

---

erdainarazi, erdainaraz, erdainarazten du ad erdintzera behartu.

Sikemdarrak **erdainarazi**. Elizen arteko biblia

---

erdaindu, erdain, erdaintzen **1** du *ad* norbaitez mintzatuz, haren prepuzioaren azal zati bat moztu; zakilaz edo klitoriaz mintzatuz prepuzioaren zati bat moztu.

Hau da zurekin eta zure ondorengoekin egiten dudan ituna, zuek gorde behar duzuena: **erdain** itzazue zeuetako gizaseme guztiak. Jose Antonio Mujika

Isaak jaio zitzaionean, zortzigarren egunean **erdaindu** egin zuen Abrahamek; berdin egin zuen Isaakek ere Jakobekin, eta Jakobek hamabi patriarkekin. Elizen arteko biblia

Zeuen zakil-muturra **erdainduko** duzue, nire eta zuen arteko itunaren seinale. Jose Antonio Mujika

Erizainak eta osabak pixka batez zer egin pentsatu zuten: urratua aprobetxatuz Imanol **erdaindu** eta mottoa osorik kendu ala mottoa josi eta bere horretan utzi sendatzen. Aitor Arana

Erdaindu zuten Jesus Haurra. Patxi Altuna

Erdaingabea, hau da, bere zakil-muturra **erdaindu** ez duen gizasemea, herritik bota egingo duzue, nire ituna hautsi duelako. Elizen arteko biblia

Jaio eta zortzi egunera **erdaindu** ninduten; jatorriz israeldarra naiz, Benjaminen leinukoa, hebertar-hebertarra; legea ulertzeko moduari dagokionez, fariseua. Elizen arteko biblia

Beren semeak **erdaintzen** zituzten emakumeak hil egiten zituzten, erregeak agindu bezala. Elizen arteko biblia

Musulmanek pertsona bat **erdaindu** gabe zegoela, hots, musulmana ez zela ikusten bazuten, hil egiten zuten. Gotzon Garate

2 (da aditz gisa)

Abrahamekin batera **erdaindu** ziren etxeko gizaseme guztiak ere, nahiz etxean jaioak nahiz atzerrian diruz erosiak. Elizen arteko biblia

Erdaindu zirenean, Abrahanek laurogeita hemeretzi urte zituen, eta Ismael semeak hamahiru. Jose Antonio Mujika

Gu bezalako bihurtzen bazarete bakarrik onartuko dizuegu eskaria, zuen gizonezko guztiak **erdaintzen** badira, alegia. Elizen arteko biblia

3 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Hinduek ikusten bazuten pertsona **erdaindua**, azkendu egiten zuten. Gotzon Garate

Erdaindua nahiz erdaingabea izateak ez du garrantzirik; Jainkoaren aginduak betetzea da balio duena. Harentzat ez dago ez greziarrik eta ez judurik, ez **erdaindurik** eta ez erdaingaberik. Elizen arteko biblia

Zeren **erdainduek** berek ere ez baitute legea betetzen. Elizen arteko biblia

Nahiz gutxi eta kalbinistak diren irakurleok, edo are okerrago, masoi eta **erdainduak**-. Juan Garzia

4 ***erdain-min*** erdaintzearen mina.

Hirugarren egunean, artean **erdain-minez** zeudela, Jakoben seme eta Dinaren neba biek, Simeonek eta Lebik, nork bere ezpata hartu, hirian eragozpenik gabe sartu eta gizonezko guztiak hil zituzten. Jose Antonio Mujika

---

erdaingabe *izond/iz* erdaindu ez dena.

Erdaingabea, hau da, bere zakil-muturra erdaindu ez duen gizasemea, herritik bota egingo duzue, nire ituna hautsi duelako. Elizen arteko biblia

Arreba gizon **erdaingabe** bati eman? Jose Antonio Mujika

Zer, emakumerik ez al da, ba, zure senitartean eta zure herri osoan, filistear **erdaingabe** horien alabetara joateko emazte eske? Jose Antonio Mujika

Nire tenplua profanatzen ari zarete, oparietan neuri dagokidana [...] eskaintzean, atzerritarrak, jende **erdaingabe** eta sinesgogor hori, bertara sarraraziz. Elizen arteko biblia

Zorion hau, ordea, erdainduari bakarrik ote dagokio, ala **erdaingabeari** ere bai? Elizen arteko biblia

Erdaindua nahiz **erdaingabea** izateak ez du garrantzirik; Jainkoaren aginduak betetzea da balio duena. Elizen arteko biblia

Pedro Jerusalemera itzuli zenean, erdainkuntzaren aldeko fededun juduek **erdaingabeen** etxean sartu eta beraiekin jan zuela bota zioten aurpegira. Elizen arteko biblia

---

erdainketa *iz* erdainkuntza.

Onartu ezinezkoa da -protestatzen dugu-, han ohikoa dela eta horregatik ongi dagoela poligamia, eta emakume mahomatarrek karrikan beloa eraman behar izatea aurpegia ezkutatzeko, are milioika neskatok jasan behar izatea **erdainketa** feminino edo mozketa genitala, etab.! Joxe Azurmendi

Graziazko legeak bekatu hura kendu arte bataioaren eta penitentziaren bitartez edo Jesu Kristok pairatu aitzin bezala **erdainketaz** edo beste zerbait gisaz. Piarres Xarriton

---

erdainkuntza **1** *iz* erdaintzea. ik **zirkunzisio**.

Zirkunzisioa edo **erdainkuntza** : Klitoriaren prepuzioa kendu egiten da. Berria - Gaiak

Ituna eta haren seinalea: **erdainkuntza** . Jose Antonio Mujika

Jesus haurraren **erdainkuntza** . Patxi Altuna

Haien ahaideak eta **erdainkuntza** egin zutenak ere hil egiten zituzten. Elizen arteko biblia

Beste nazioetako jende asko, **erdainkuntza** eginez, judu bihurtzen zen, juduen beldurrez. Elizen arteko biblia

Erdainkuntza ezaugarri gisa eman zion Jainkoak, erdaindu aurretik sinesmenari esker onartu zuela adierazteko. Elizen arteko biblia

Jainkoak botere berezia eragin baitzuen juduen gainean, **erdainkuntzaren** itun zaharraren bidez. Esteban Antxustegi

Pedro Jerusalemera itzuli zenean, **erdainkuntzaren** aldeko fededun juduek erdaingabeen etxean sartu eta beraiekin jan zuela bota zioten aurpegira. Elizen arteko biblia

Erdainkuntzaren aztarnak ezabatu zituzten, uko egin zioten itun santuari eta arrotzen uztarria onartu, okerkeria egiteko beren buruak salduz. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erdainkuntza baliotsua duzu, bai, baina legea betetzekotan. Elizen arteko biblia

Izan ere, benetako judua ez da kanpotik hala dena; eta benetako **erdainkuntza** ez da kanpotik gorputzean egiten dena. Elizen arteko biblia

Bigarren **erdainkuntza** . Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Jaunaren **Erdainkuntza** egunean. Askoren artean

Haien ordez, beste belaunaldi bat sortarazi zuen Jainkoak, eta hauek erdaindu zituen Josuek, bidean ez baitzuten **erdainkuntza** -ohikunea inoiz ere egin. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erdainkuntza eta eguberri (3); **eta erdainkuntza** (3)

---

erdaintze *iz* adierazten denaren zakil mokoaren azal zati bat moztea.

Ez da astoaren **erdaintze** eguna, nik dakidala. Pablo Sastre

---

erdal *(orobat **erdel** g.er.)* **1** *erdara* izenak hitz elkarketaren lehen osagai gisa hartzen duen era.

Zentzugabekeria galanta litzateke **erdal** hitzen aurkako gurutzada atzera berriro piztea. Koldo Zuazo

Erdal izen-abizenak euskarara aldatzeko eskubidea. Iñaki Arranz

Ez dut isilduko **erdal** hiztunen kontzientzien aringarri ere izan zela Oteizaren jarduna: euskararik gabeko euskal herritarrak hizkuntza baino haratagoko eremu sakratu batzuetan bila zezakeen, balizko neolitiko batean, euskal arimaren esentzia. Anjel Lertxundi

Euskal kulturatik beti bezain urrun dago **erdal** komunitatea, ez urrunago. Berria - Euskal Herria

Mozorrotuta agertzen da beste batzuetan **erdal** iturria. Koldo Zuazo

Kirikiñok **erdal** ordaina ematen zuen ondoan. Iñaki Arranz

Erdal baliokideek ematen ez duten, eman ezin duten muin hori azaltzea. Iñaki Iñurrieta

Administrazioa ez da gai euskarazko zerbitzua emateko, administrazioak ez du neurririk hartu **erdal** hedabideek euskarari tokia emateko. Berria - Euskal Herria

Bioi piztu zitzaigun euskal kulturarako interes apur bat **erdal** basamortu hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Erdal prentsarentzat (abertzaleen **erdal** prentsak barne), gure sistema ez da baliagarria. Iñigo Aranbarri

Erdal irakasleen artean badela adin guztietako jendea. Pello Salaburu

Perpaus erlatibo horiek **erdal** eredu bati jarraiki moldatu dituela euskarak, hizkuntza idatzian eta hizkuntza jasoan baliatzeko bereziki. Pello Salaburu

Erdal grafiaz eman dute zinegotzi hilaren bigarren abizena. Iñigo Aranbarri

Elite Pelote Basque horrek ez ote du euskal izen bat merezi, **erdal** haundikeria guziak bezain zuzenki? Herria

Beste burutapen mordoa **erdal** *amargo* horrek ekarri dit, izanez ere, baliatu duen apurra, semantika berdintsuz baliatu baitu euskarak ere (margo) margul hitzen inguruan. Patziku Perurena

Mendebalean **erdal** partizipioetako *-ado* -> *-au* eta *-ido* -> *-idu* bilakatu dira. Koldo Zuazo

2 ***erdal herri*** *(orobat **Erdal Herri** eta **erdalerri** g.er.)*

Orain, aldiz, beste euskaldunengandik banatuta, eta erdaldunekin bat eginda, daude zuberotarrak, eta **erdal herrian** daukate euren hiriburua eta erabakigunea: Oloroen. Koldo Zuazo

Nire gurasoek, naiz eta euskal apelliduak izan, euskeraz ez zekitelako, **erdal herri** batean jaio nintzelako, Bilbaon. Berria - Kultura

Kanpoko gauza, gehienetan, eta Euskal Herri bertakoak direnetan ere **erdalerri** bihurtuak edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskal Herriaren zinezko eta euskalgisako independentziak **Erdal Herri** bakarraren mugakide izatea eskatzen du eta dakar erremedio gabe. Iñaki Segurola

Eta laster **erdal herri** nagusian Madrilen berean ezagutu zuen Mari-Paz bere andregaia euskaldun berri egin zuen. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
abertzaleen erdal (3); **diren erdal** (3); **erdal grafiaz** (4); **erdal herri** (4); **erdal herria** (4); **erdal hitz** (3); **erdal hitzak** (3); **erdal hitzen** (3); **eta erdal** (16); **euskal eta erdal** (6)

---

erdaldun **1** *izond/iz* **1** erdaraz mintzatzen dena, euskaraz ez dakiena.

Eguneroko adiskideekin aipatu ezineko sekretu txikia partekatzen du isilpean kolegioko neskato **erdaldunarekin**. Urtzi Urrutikoetxea

Susmoa dut gauza hauetan zuri euskararekin zure lagun **erdaldunari** gaztelaniarekin gertatzen zaiona gertatzen zaizula: [...]. Pello Salaburu

Euskarazko eredua bultzatzen duten ikastetxeetara, toki anitzetan segurik hau da kasua, ume **erdaldunak** joaten dira batez ere, etxean gurasoek ez baitakite euskaraz deusik. Pello Salaburu

Nafar abertzale **erdaldunenak**, berriz, ez du behin ere "País Vasco-navarro" esango, ezta umore mikatzenarekin ere. Bernardo Atxaga

Barru-barrutik adierazten zidan zerbaitek, bertako traidoreek deiturik, aurki itoko gintuela odoletan oste **erdaldun** arrotz batek. Txillardegi

Herri euskaldunean, alkate ezin **erdaldunagoa**, ezin erdalzaleagoa. Hasier Etxeberria

Erdaldunak ziren egokitu zitzaizkidan irakasle gehienak, bai laikoak bai apaizak. Xabier Mendiguren Elizegi

Erdaldunak errazago eta lasterrago euskalduntzea eta egokitzea euren inguruko gizartean. Koldo Zuazo

Anitzetan politikoek euskararen eta euskaldunen kontrako aukera egin dute lanerako **erdaldunak** deitu izan dituztenean. Pello Salaburu

Guretzat japonesa ez da euskara, baina ezta "erdara" ere, eta ezta japones bat **"erdalduna"** ere; nik badakit erdaraz, baina ez naiz **"erdalduna"**, eta euskaraz dakien japonesa ere ez da "euskalduna" edo "euskaldun bat". Iñaki Segurola

2 irud/hed

Familiatik zetorkidan ingurune **erdaldun** eta burgesak ezinegon handia sortarazi zidan. Ana Urkiza

Lasalleko azken urteetako giro **erdaldun** baina euskaltzalearen ostean, giro **erdaldun** hutsa aurkitu nuen Tolosan. Xabier Mendiguren Elizegi

Etorkinek etorkizuna gaztelerarentzat irabaziko dute, kultur eta informazio transmisioa egunkari **erdaldunetan** finkatuz. Pako Aristi

Berdin jokatu da Sartaguda herri **erdalduneko** eta Bera herri nafar euskalduneko ikastoletan. Koldo Zuazo

Barrenean bi gizonen burruka latza somatzen dugu (--...), biotz euskalduna ta buru **erdaldunaren** arteko burruka amaigabea. Koldo Zuazo

Eremu **erdaldun** horretakoak ziren Nafarroako agintariak. Koldo Zuazo

Hizkuntzako modak zabaltzeko, hiri handien itzala da beharrezko, eta Bilbo **erdalduna** zenez gero, Bizkaiko euskarak ez zuen euskarri nahikorik horretarako. Koldo Zuazo

Pilota profesionala **erdalduna** ote? Berria - Kirola

Bere nortasuna galarazita zuen herri euskalduna are galduago agertu zen uholde **erdaldunaren** zurrunbiloan. Koldo Zuazo

3 (izenlagun gisa)

Bere **erdaldun** ikaskideekin erkatzen badugu. Pello Salaburu

Orain itzul gaiten gure Nafarroako **erdaldun** lekuetara eta ikus ditzagun zenbait euskal hitz han gelditu direnak, oroigarri batzuk bezala. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aipatu ditugun euskaldun edo **erdaldun** idazleen eta pentsalarien laguntzarekin politika printzipio nagusiak ongi finkatzera nahi genuke bermatu. Piarres Xarriton

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Iparralde osoan beraz, % 63 **erdaldun** hutsak dira. Herria

Euskal hiztunen artean, hamarretik bederatzi pasak izan zuten finalaren berri, eta **erdaldun** elebakarren ia erdiak. Berria - Kultura

Erdaldun peto-petoa zen. Joxean Sagaztizabal

Munilla izeneko **erdaldun** arrotz hura. Txillardegi

Ez al da hobe gutxi horiendako idaztea eta gainerakoak, balizko **erdaldunak**, atzentzea? Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erdaldun bat (4); **erdaldun batean** (3); **erdaldun batek** (5); **erdaldun elebakarrak** (4); **erdaldun elebakarrak dira** (3); **erdaldun elebakarren** (4); **erdaldun hutsak** (5); **erdalduna dela** (4); **erdalduna eta** (4); **erdaldunak ziren** (7); **erdaldunen artean** (6); **erdaldunen eta** (3); **erdaldunen eta euskaldunen** (3); **erdaldunetan eta** (3); **eremu erdaldunetan** (5); **eta erdaldun** (4); **eta erdaldunak** (8); **eta erdaldunen** (4); **euskaldunak eta erdaldunak** (7)

---

erdaldundu, erdalduntzen da/du *ad* erdaldun bihurtu.

Eskola hauek berez euskalduna dena **erdalduntzen** ari dira. Berria - Harian

Oso goiz **erdaldundu** zen Nafarroako alderdi zabala, ekonomian aberatsena eta aurreratuena zena. Koldo Zuazo

Ostera, kinielak edo apustuak egin daitezke honenbeste euskaldunduko diren eta harenbeste **erdaldunduko**. Berria - Euskal Herria

Erdaldunduta zeuden orduko Gasteiz eta Iruñea, eta euskararen aldeko ahaleginak ez zuen oihartzun handirik izan Nafarroako ekialdeko ibarretan eta Arabako herri txikietan. Koldo Zuazo

Agian **erdaldundu** gabeko euskal gizartearekin mintzatu ahal izatea zen nire eragile ezkutua. Txillardegi

Euskal patroiak esku hartu behar zuela justizia sozialean, nazioartekotasunak euskal izatearen hondamena zekarrela, guretasuna **erdaldundu** nahi zutela jainkogabeek. Koldo Izagirre

2 (era burutua izenondo gisa)

Otto i va pas nu klanpse la o muin? -ohartarazi zuen kezkatua, Joanesen iloba **erdaldunduak**. Itxaro Borda

Kontzeptu horiek guztiz arruntak dira gure belarrietarako (gure belarri **erdaldunduetarako** esan beharko nuke agian). Xabier Mendiguren Elizegi

Alderdi **erdaldunduak** alderdi euskaldunekin batzea eta berdintzea ez zen izan, ordea, Euskara Batuak ekarri zuen onura bakarra. Koldo Zuazo

---

erdalduntze *iz* erdaldun bihurtzea.

Pastoral honen gozatzerat etorriko dena ere berehala ohartuko da **erdalduntze** handia aspaldidanik pairatu duen Maulen, zelako suhartasuna eragin duen Antso Handia pastoralaren egitasmoak hainbat gazterengan. Berria - Kultura

Erdalduntzearen aurka, ahoskeran nahiz prosodian. Berria - Kultura

---

erdalerri ik **erdal 2**.

---

erdalerritar *izond* erdal herriko herritarra.

Gainerako mundutar guztiak Erdal Herriko hiritar edo **erdalerritar** bihurtzera. Iñaki Segurola

---

erdalgauza *iz* erdal gauza.

Gauza batzuk euskalgauza bihurtu ditu eraikuntza nazionalak, eta besterik gabe onestekoak eta onak; beste batzuk, jakina, **erdalgauza** (zezenak, adibidez, baina ez idiak: kasu adibide honi!) deklaratu ditu. Iñaki Segurola

"Gauza batzuk euskalgauza; beste batzuk **erdalgauza"**. Iñaki Segurola

---

erdalgintza *iz* erdararen eta erdal kulturaren aldeko lana. ik **euskalgintza**.

Izen zikinen kontra, ur garbiaren amorez; **erdalgintza** erdara-sartzaile eta euskalgintza euskara-saltzaile eta araugilearen kontra, gure euskara honen amorez. Iñaki Segurola

Ez naiz beti goiko -**Erdalgintza** nahiz Euskalgintzako- paisajeetara begira itsutuko, hemen behere honetan, parez pare, hurko, herritar eta kidekoen artean gertatzen denak inportako ez balu bezala. Iñaki Segurola

---

erdalgune *iz* erdarazko gunea.

Azken Txapelketa Nagusian **erdalgunetara** iristeko ahalegin berezia egin da hedabideen bitartez.. Berria - Kultura

Erdalgunera hurbiltzea zen helburuetako bat. Berria - Harian

---

erdalkeria *(orobat **erderakeria** g.er.)* *iz* erdaratiko hitz edo esaldi gaitzesgarria.

Bietan min egiten digu iparraldekoeri **erdalkeria** horrek hegoaldetik datorrela ikusiz, hain zuzen euskararentzat hainbertze ekartzen eta erakasten diguten hango anaia eta erakundeen aldetik. Herria

Orain, "tourraren" erabilpen hori, guretzat berria, sartzen ikustearekin, elgarri so gelditzen gare gu, erranez norat ari garen, berriz gibelatze **erdalkeria** bezala senditzen dugun horrekin. Herria

Beraz, liztortzar eta liztor arrunt, euskarari bere arima ukatzeaz gain inolako zehaztasun zientifiko berririk ez dakarkioten **erderakeria** nahasgarriak besterik ez dira. Patziku Perurena

---

erdalmotz *izond* erdara motza duena.

Mundu zabaleko edozein errealitateri gagozkiola, bat izan daiteke oso bertakoa eta **"erdalmotza"**, eta bertako errealitate horretatik txit aparte egon edo bizi, eta alderantziz, izan daiteke oso arina eta gauzetan ezjakina, bera ez bezalakoei "sakonekoa" esaten dien horietakoa, eta errealitate horrekin oso bat eginik eta jabeturik egon. Iñaki Segurola

---

erdaltasun *iz* erdarazkoa denaren nolakotasuna.

Askotan aurpegiratu izan zaio Oteizari bere **erdaltasuna**, eta berak ere sarri aitortu izan du, minez eta amorruz, sekulako muga zuela hori. Joxerra Garzia

---

erdaltzale *(orobat **erdalzale** g.er.)* *izond* erdararen zalea dena.

Izan ere, idazkaria erdalduna bada, agente **erdaltzalea** ere bada. Berria - Euskal Herria

Lagundu-behar horri esker genekien guk euskaraz (guk, Arruebarrenatarrok, alegia) Donostiako kalekume harroxko, arrunt eta **erdaltzaleek** jakin ohi duten baino hobeki. Txillardegi

Gure amaren harako beste lagun **erdaltzale** hark bezala, "la gaztelania fazil idioma ser" pentsatu izango zuen noski umeak bere artean. Joxerra Garzia

Halatsu gure arteko asko ere (guri begira bota baitu adibidea Txepetxek ere), Madrilen edo Parisen herriaren eta euskararen zale, eta herriko euskaldun gizajoen aurrean, ordea, erdaldun eta **erdaltzale**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

erdaltzaletu, erdalatzale(tu), erdaltzaletzen da/du *ad* erdaltzale bihurtu.

Ondotxo **erdaltzaletu** ginen eskolaren eraginez, nahiz eta herria bera euskaraz bizi. Ana Urkiza

---

erdalzale ik **erdaltzale**.

---

erdara *(orobat **erdera** g.er.)* **1** *iz* euskara ez den edozein hizkuntza, eskuarki gaztelania eta frantsesa.

Euskara garbia nahi zuen, **erdarak** kutsatu gabea. Xipri Arbelbide

Guretzat japonesa ez da euskara, baina ezta **"erdara"** ere, eta ezta japones bat "erdalduna" ere; nik badakit **erdaraz**, baina ez naiz "erdalduna". Iñaki Segurola

-Batzuek apenas dakigun **erdaraz** ere -arrapostu Xerealek ondotik. Iñaki Iñurrieta

Hemen denok baitakigu **erdara**, inor ez da idiota. Iñaki Iñurrieta

Atzo **erdara** ez jakiteaz zinen gorrituko, eta orain, gero ta gehiago, euskara ez jakiteaz. Herria

Grazia egiten digute guri baserritar bakaladeroek [...], poz hartzen ere bertsoa aditu baino suge gorria ikustea nahiago duen **erdara** gutxiko jendearekin: halaxe gerta daiteke eta gertatzen da euskarak indar puxkat duen toki bakanetan. Iñaki Segurola

Esan izan dit pixkaren bat ezagutzen nauen eta ni baino euskara gutxiagoko eta **erdara** gehiagoko lagun batek "ni baino euskaldunagoa" zela edo dela bera. Iñaki Segurola

Orduan da ageri gure mintzaia zoin den aberatsa, bai frantsesaren aldean, bai eta bertze edozoin **erdaren** aldean. Xipri Arbelbide

Bere heziketan **erdara** bakarrik erabiltzen dutenak gutxi dira, batez ere sare publikoan. Pello Salaburu

Zeregin jasoetan **erdarara** jotzeko ohiturak sustrai sakonak ditu, beraz, gure herrian. Koldo Zuazo

Hori dela-eta ezin ulertu, **erdaraz** hain erraz egiten zuten haiek irakurtzen ez jakitea. Xabier Mendiguren Elizegi

Aktak-eta **erdaraz** egiten ditugu, bandoak ele bitan, eta eskutitzak jasotzailearen arabera. Berria - Euskal Herria

Erdaraz halamoduz egiten zuelako, eta hortik jarri zioten ezizena ere, "El Ruso". Xabier Mendiguren Elizegi

Hobeto zekien euskaraz, baina [...] gustatzen zitzaion **erdaraz** egitea, eta, batez ere, **erdaraz** zekiela gogoraraztea. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuk zerorrek agian **erdaraz** egiten duzu maizkara euskaraz ongi moldatzeko gai den jendearekin ere. Pello Salaburu

-Ederki moldatzen zara **erdaraz**, Bixenta! Txillardegi

Erdaraz bota zidan: [...]. Edorta Jimenez

Harrituta entzuten omen zuen Martinek bere ama **erdaraz**, osterantzean euskaraz aritzen zelako beti. Xabier Mendiguren Elizegi

-Muga aldera goaz -erantsi zuen, **erdaraz** beti ari-. Txillardegi

Hau da orduko pasadizoa, denboraren iraganak urteak geroago argituko duena, zu bezalako gazteak ikasketak euskaraz egin eta jostetan **erdaraz** ikusten ditugunean, guri

gertatzen zitzaigunaren alderantzizko egoeran, guk ikasi, **erdaraz** ikasten baikenuen eta jostatu, berriz, euskaraz jostatu. Pello Salaburu

-Gaur salbuespen eguna da -esan zuen, **erdaraz**, noski-. Txillardegi

Adierazi behar diot atzo nire hitzak **erdaraz** jarri zituen sekretario nazkagarri horretaz ez naizela batere fio. Anjel Lertxundi

Badakit kanpainok **erdaraz** diseinatzen direla, eta gero, azken unean, korrika eta presaka euskaratu ohi direla. Joxerra Garzia

Erdarazko esamolde batzuetan ere zentzu hori baitu pikoak: [...]. Patziku Perurena

Kontuz hartu behar da, dena dela, *palatalizazio* terminoa, horren kide **erdarazkoak** bezala. Berria - Kultura

Meza guzia euskaraz, predikuan gotzaiak berak bere **erdaran** goresten zuela apeza batetik eta euskal kulturaren langile haundi hori bestetik. Herria

Euskal Herrira izuli aitzin, **erdaran** bizi izan dut adimenaren jarduera. Piarres Aintziart

Euskaraz ez zuen erraztasunik eta **erdarara** pasatzen ginen. Joseba Zulaika

Erdaratik hartutako hitzak, edo euskararik bertatik sortutako berriak, euskalki guztietara zabaltzea. Koldo Zuazo

Erdarekiko morrontza itsua gabe, geure baitatik sortzeko ahalmena, geure sena sendotzea da gure Iraultzaren helburua. Koldo Zuazo

Euskal mentalitatearen kontzeptu gako hori, inguruko **erdaretako** ordainak ematean desitxuratu egiten dela-eta, bere berezitasun osoan atzematea. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erdara zaharrean, arbolak eme baitziren. Patziku Perurena

Hori dena, **erdara** ederrean idatzita. Berria - Kirola

Aitaren letra ezagutu nuen, ondo zegoela Jaungoikoari esker, zioen aitak **erdara** dotorean. Joseba Sarrionandia

Jarraian, tenientearena bezain **erdara** zehatzean, aldizkari harekin gertatutakoa azaldu zuen nire dohainen zerrenda luze bat egin aurretik. Bernardo Atxaga

"¿Ya sabes en vasco?", egiten genuen galde gure txikitako **erdara** halamoduzko hartan. Iñaki Segurola

Txinatarrez hitz egitea zen gehiena gustatzen zitzaiona, bere **erdara** txar hartan. Koro Navarro

Kazetariek berriz ez zuten haien **erdara** mordoilo eta biraoz josia lar ulertzen eta, gaitzerdi! Edorta Jimenez

Sinetsi egiten diot sekula entzun dudan **erdararik** ilunena egiten duen gizon honi. Koldo Izagirre

Ez nuen espero baserritar askorik **erdara** garbian niri entzuten. Pello Zabala

Behin, gogoan dut, Bilboko alkate nazionalistak opari bat egin zion Euskaltzaindiari eta eskuratu zion oroigarriko testua **erdara** hutsean jarri zuen. Pello Salaburu

Erdara hutsean daude Euskal Herrian saltzen diren produktu askoren etiketak. Berria - Harian

Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiak bere katalogoa **erdara** hutsez dauka. Berria - Kultura

Erdara jantzian eta umore sanoa zeriola, berriz, han genuen Jose Ignazio Álvarez Usabiaga maisu maitagarria. Pello Zabala

Euskara aldameneko **erdaren** mailan ipintzea izan da 1960tik honako helburua. Koldo Zuazo

Erdara frantsesez erraiten da "un moment de grâce". Piarres Aintziart

Eta ez dakit zergatik, frantses **erdaraz** datorkit gogoeta: "Il est en train de la sculpter avec des mots basques!"; "Neskaren zizelkatzen ari da euskal hitzez". Piarres Aintziart

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez du eskurik doinu zuri neutro batetik haratagoko esanetan: hor ez da euskararik ahoraino iristen edo esan ezinkako kinkirrin baldar batean iristen da, **erdara** mordo baten sasipean kuxkurturik gainera. Iñaki Segurola

Izen zikinen kontra, ur garbiaren amorez; erdalgintza **erdara**-sartzaile eta euskalgintza euskara-saltzaile eta araugilearen kontra, gure euskara honen amorez. Iñaki Segurola

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskara osoan eta auzo **erdaratan** ere arrunt erabilia den hitza. Patziku Perurena

Akaso, **albo-erdera** indartsuagoetan baino sormen-premia eta sormen-aukera handiagoak ditugu. Andoni Egaña

Erdi **erdaran** erdi euskaran osatutako gaitzizenen bat. Patziku Perurena

5 gaztelania.

Euskaraz, **erdaraz** eta hala nahi bazuten txineraz, nik egindako guztia, emakume batengatik egindakoa zen. Hasier Etxeberria

6 ***sorgin erdara*** hizkera ulergaitza, esaldi bateko hitz guztietan letra edo silaba bat, beti bera, tartekatuz eratzen dena.

Sorgin solasa, **sorgin erdara**, zapo erdara (zapaerdera) eta ahuntz erdara (auntz erdera, auntz berbetea) dira "hizkuntza" honen izenak, eta horretan aritzen denak esaldi bateko silaba guztiek *p* kontsonanteaz errepikatu behar ditu. Iñaki Arranz

Sorgin erdara ez izan arren, zenbakiak era bitxi batean zerrendatzeko aukera eskaintzen digu euskarak. Iñaki Arranz

7 ***zapo erdara*** hizkera ulergaitza, esaldi bateko hitz guztietan letra edo silaba bat, beti bera, tartekatuz eratzen dena.

Sorgin solasa, sorgin erdara, ***zapo erdara*** (zapaerdera) eta *ahuntz erdara* (auntz erdera, auntz berbetea) dira "hizkuntza" honen izenak, eta horretan aritzen denak esaldi bateko silaba guztiek *p* kontsonanteaz errepikatu behar ditu. Iñaki Arranz

Ez da harritzekoa ahuntz- eta **zapo-erdara** hitzak hizkera mordoiloa esateko ere erabiliak izatea. Iñaki Arranz

Gurean erabili izan den **zapo-erdara**, ahuntz-erdara edo sorgin-solas deritzeten horietako batean moldatu dut testua. Xabier Olarra

Nik ezetz, ez nekiela, eta orduan argitu zidan bere **zapo-erdara** harengatik jarri ziotela goitizena. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzo erdaratan (3); **bakoitzean erdara** (4); **bakoitzean erdara bana** (4); **erdara bana** (4); **erdara bana nagusi** (3); **erdara da** (6); **erdara ere** (5); **erdara eta** (5); **erdara ez** (6); **erdara hutsean** (14); **erdara hutsean daude** (3); **erdara hutsez** (9); **erdara hutsez ari** (3); **erdara hutsezko** (3); **erdarara jo** (3); **erdarara jotzeko** (3); **erdaratik hartutako** (3); **eta erdara** (17); **eta erdarara** (3); **eta erdararen** (3); **euskara eta erdara** (4); **guztiak erdara** (3); **zapo erdara** (7)

bai erdaraz (6); **baina erdaraz** (5); **bakarrik erdaraz** (3); **bat erdaraz** (4); **batek erdaraz** (3); **batzuetan erdaraz** (3); **berak erdaraz** (4); **beti erdaraz** (6); **dena erdaraz** (3); **du erdaraz** (3); **edo erdaraz** (5); **erdaraz ari** (12); **erdaraz baizik** (4); **erdaraz baizik ez** (3); **erdaraz bezain** (4); **erdaraz egin** (14); **erdaraz eginak** (3); **erdaraz egingo** (3); **erdaraz egitea** (5); **erdaraz egiteko** (3); **erdaraz egiten** (15); **erdaraz ematen** (5); **erdaraz ere** (9); **erdaraz erraiten** (4); **erdaraz esan** (3); **erdaraz eta** (10); **erdaraz ez** (4); **erdaraz hitz** (4); **erdaraz idatzi** (6); **erdaraz idatzia** (8); **erdaraz idatzitako** (5); **erdaraz ikasi** (3); **erdaraz irakasten** (3); **erdaraz irakurri** (3); **erdaraz izan** (5); **erdaraz jarraitu** (3); **erdaraz mintzo** (7); **eta bai erdaraz** (4); **eta erdaraz** (33); **euskaraz edo erdaraz** (4); **euskaraz erdaraz** (3); **euskaraz eta erdaraz** (18); **ez erdaraz** (3); **guztiak erdaraz** (6); **hitzak erdaraz** (3); **ikasgai bat erdaraz** (3); **zidan erdaraz** (3); **zuen erdaraz** (4)

erdarazko bertsioa (3); **erdarazkoak izango** (4); **erdarazkoak izango diren** (3); **eta erdarazko** (9)

---

erdarakada *(orobat **erderakada** g.er.)* **1** *iz* erdarak eragindako hitz edo joskera, euskaraz arrotz gertatzen dena.

Erdarakadak erruz entzuten baidira emen ere. Patziku Perurena

Erdarakadak zuzendu egin behar dira. Berria - Euskal Herria

Orduan dotoretzat jotzen zen frantsesa ondo menderatzen zutela adieraztea, eta **erdarakadaz** betetzen zituzten testuak. Berria - Kultura

Bertsolariek darabiltzaten gaiak arruntegi omen dira; gordinkeria nabarmenez jorratzen dituzte gainera gaiok; eta hizkera ere, zabarra omen da, oso, eta **erdarakadez** josia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nola liteke espainolek erromatarren aurreko euskaratzat daukatena guk **erdarakadatzat** jotzea? Patziku Perurena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lagunarteko hizkeran erabiltzen diren **erdarakada** gordinak saihestu egiten dira hizkera jasoan. Koldo Zuazo

Haragizko lausenguentzat, erran gabe doa, neologismo bat edo ajeak ito **erdarakada** lizun bustiak onets nitzakeela. Itxaro Borda

Hor gureganatu ditugu erdararen handikeria guztiak, esateko modurik bihurrienak, **erdarakada** handienak. Pello Salaburu

Gainerako euskalkietako osagaiak ez dira bakarrik azken orduko **erdarakadak** baztertzeko lagungarri. Koldo Zuazo

Alferriko **erdarakadak** baztertzen ahalegindu behar dugu, beraz. Koldo Zuazo

---

erdaratar *iz* erdalduna.

Erdaratar horiek gure bilkura guzietan datozi, erdi frantses eta erdi kaskoin; hastean ez deraue nihork irri beizik egiten, delakotz heien elea nahasia bezain bitxi; bainan hek ez dire lotsatzen! Xipri Arbelbide

---

erdaratu, erdara(tu), erdaratzen du *ad* erdarara itzuli.

Erabiltzaileei hizkuntza errazteko, maiz, beste muturrera jotzeko joera dugu, hau da, erabat **erdaratzera**. Ana Urkiza

-Et, et, osaba. "Frantsesetik **erdaratu"** esan duzu? Txillardegi

---

erdeina ik **erdeinu**.

---

erdeinagarri *(orobat **erdeinugarri** g.er.) izond* arbuiagarria, arbuiatua izatea merezi duena. ik **mezprezagarri**.

Ez zait iruditzen adreiluzko hormaz eginda dauden eraikinak **erdeinagarriak** direnik, baldin eta modu egokian estalita badaude behintzat. Santiago Iruretagoiena

Amarekin egon ginen bitartean **erdeinagarria** egin zitzaidan semearen jarrera, baina, etxetik irten orduko, sufritzen ari zela ikusi nuen. Anjel Lertxundi

Egia aitortuko baihit ere, egia goibel eta **erdeinagarria**, den-dena aitortuko bahit ere, kontatuko bahit nola hasi zen zuen historia, zer jelosia, bekaitz, beldur eta tristurak ziztatu zintuzteten azkenean elkarren besoetan bukatzeko.Barautsontzikeria xantaia baino **erdeinagarriagoa** da, iruzurgilearen ofizioa errepideetako lapurrarena baino **erdeinagarriagoa** den bezala. izaki seduzitzaile baina **erdeinugarriz** inguratua, ezein ere ez zitzaidan arimaraino barneratu:Unamuno eta Ortega-ren ideiek Espainiaz eta historiaz [...] influentzia ez **erdeinagarri** beraiek aitortua izan dute Giménez Caballero bezalako autore falangistengan, bereziki Espainiaren interpretazioan. Xabier Olarra

---

erdeinari *izond* erdeinatzen duena.

Hitz egion nirekin ariko bahintz bezala: **erdeinaria** eta harroa izango haiz orduan, gaixo mental bat, hutsaren hurrengoa, dela esango dion orduan, eta ikusiko dun, ez din horren epel segituko. Joxan Elosegi

Arropazaindegiko neskak irribarre egin zuen bere ile kizkur horiaren arrandia **erdeinariaren** azpitik, Jimmyri kapela eskuratzen zionean. Lopez de Arana

---

erdeinati *izond* erdeinua adierazten duena.

Gogora etorri zitzaizkion epaiketako saioak, akusatuen begirada harroak, leporatzen zitzaizkien karguak entzutean agertu zuten ezaxola, edozein izanik ere epaileak ezarriko zien zigorra laster kalean egongo zirela aditzera ematen zuen harako nagusikeria **erdeinati** hura. Xabier Montoia

---

erdeinatu, erdeina, erdeinatzen du *ad* arbuiatu, gutxietsi.

Gaur egun, mundu osoan ez zenuke aurkituko inor **erdeinatzen** ez duen gizabanakorik. Jose Morales

Hi edertzeko besteak **erdeinatu**. Berria - Kultura

Modernoak izan nahi genuen baserri inguruko gauza guztiak suntsituz, **erdeinatuz**, ezkutatuz. Pako Aristi

Gure aitak **erdeinatu** egiten zuen telebista, txorakeria bat omen zen. Fernando Rey

Ez ziren hiltzeko beldur, ohituta baitzeuden hartara, baina ez heriotza bera gaindi eta **erdeina** zezakeen beste zernahitara. Felipe Juaristi

Baina justu orain, bera positibismo eta razionalismoa destainatzen ari da, errekara botatzen modernitatea, progresoa mespretxatzen, intelektualismo "transpirenaikoa" **erdeinatzen**, [...] Descartes baino San Joan Gurutzekoa lehenesten. Joxe Azurmendi

Batzuentzat, enpirista da, legeak behaketen orokortzez erdiesten dituelako [...]; beste batzuentzat razionalista platonikoa, esperientzia **erdeinatuko** lukeena. Askoren artean

Ikusiko zenukeen nola **erdeinatzen** ditudan maitale bat izateraino zitaldu diren emakumeak! Jon Muñoz

"Ez du sinadurarik", ihardetsi zion emakume eder hark suminez: "baina berdin ditut **erdeinatzen** gutuna eta egilea". Jon Muñoz

Zure jokabideak sortu didan harridura eta ezinegona; [...]; ausaz zuk **erdeinatzen** dituzun emakumeekin nahasiko eta haiek bezain arinki tratatuko ote ninduzun ideia ezin jasanezkoa. Jon Muñoz

Aberatsaren mahaitik eroritako ogi apurrak dira horiek: aberatsak **erdeinatzen** ditu; baina pobreak lehiaz biltzen ditu eta hura du bazka. Jon Muñoz

Erdeinatua bezain miretsia, bakarti handi bat zen orain alkoholak zimurtua daukan Oteiza gizajo hau. Koldo Izagirre

---

erdeinu *(orobat **erdeina** g. er.)* **1** *iz* arbuioa, mespretxua. ik **destaina**.

Haren begiek ez ditek jadanik herra eta **erdeinua** baizik adierazten. Jon Muñoz

Gorputzeko mina arbuiatzen zuen, eta **erdeinu** horretarako indarra barneko min batetik baino ezin zuen atera Marfa zaharrak, berea bezalako min moral batetik baino ez. Karlos Zabala

Nekazariei ez nien beldurrik: gorroto nien; **erdeinu** nituen; higuin nituen. Eskarne Mujika

Gogor gaitzesten zuen haiek geometriari zioten **erdeinua**. Jon Muñoz

Beraz zer nolako **erdeinua** sentitzen dugun etorriko zaizkigun gaitzen eta gertaeren zain egoteko zuen ohitura horren aurrean. Jon Alonso

Iruditzen zitzaidan orduraino nire bihotzaz arnegatuta bizi izan nintzela baina maitasuna bihotzeratu zitzaidan momentutik, sumatu nuen, ustez behintzat, ene bihotza han zela; arnegu, **erdeinu** eta bortxa guztiak gora behera ere, han zela bihotza. Matías Múgica

Egun boladan dagoen doinuak, ordea, hari **erdeinu** egitea dakar berekin. Ibon Uribarri

Garaikideek ez diote horrelakorik onartzen, iraina eta **erdeinua** besterik ez dute idazle aintzat hartu gabearentzat. Jose Morales

Abasen presentziak ez zion damurik ez sentimendu eztirik eragin, ezpada **erdeinua** eta gorrotoa. Patxi Zubizarreta

Iseka ere, Gorroto dugun edo beldur garen gauza baten aldeko Mesprezutik sortzen da, eta **Erdeinua**, berriz, Ergelkeriaren aldeko Mesprezutik. Piarres Xarriton

Ez diot aitortu gutun bat utzi zidala hil aurretik, nirekin bizi izandako urteetan zurian beltz eginez, nigandik jasotako **erdeinu** eta gutxiespenak salatuz. Anjel Lertxundi

Maskara horiek lagungarri izango dira pertsonaia bakoitza arteak sortutako irudia dela eta zein bere oinarrizko sentimenduaren adierazpenean betikoturik dagoela iradokitzeko: gaizkiaren damua iradokiko du Aitarenak, mendekua Ugazalabarenak, **erdeinua** Semearenak, oinazea Amarenak. Josu Zabaleta

Zorionez bere buruari **erdeinu** izateko gauza izan zen. Jon Alonso

Lehen helburua jurisprudentzia zaharrarekiko **erdeinua** sortzea zen, eta bigarrena berria eratzea. Iñaki Iñurrieta

Hiritarrek narda hartzen dute legeekiko; **erdeinua** sortzen zaie ezarritako gobernu-eraz; bi erlijioen kontrako susmoen ordez, bietako baten aldeko fede irmoa sortzen da. Iñaki Iñurrieta

Aspaldikoa da euskararen (hizkuntza ezdeus barbaroa) eta euskaldunaren **erdeinua** : menditar tontoa dela, arlotea, ezjakina. Joxe Azurmendi

Xenofobiak formarik bariatuenak har ditzake, ideia "atzerritarren" jasanezin ideologikotik, kontinente osoetako arrazen **erdeinuraino** . Joxe Azurmendi

Ezikusia egin dio mutilaren bisaian marraztu den **erdeinuari** . Aingeru Epaltza

Borreroak denbora hartu behar izan zuen, jendearen oihu eta **erdeinuei** gor, korapiloa laxatu eta kondenatuaren buru-neurrira egokitzeko. Anjel Lertxundi

Jendearenganako **erdeinua** piztu zion eta batzuetan giza aurpegia ikuste hutsarekin nazka sentiarazten zion zer hutsal, lohi eta gaizto hori erabat desagertu zen bat-batean. Jose Morales

Kriminal hutsa naiz, zapoa, piztia zitala, eta **erdeinu** guztiak merezi ditut. Patxi Zubizarreta

Orain Ministroak **erdeinutik** hurbil zegoen tonuaz hitz egiten zuen. Jon Alonso

Danelek **erdeinutzat** hartuko zuela gure ezezkoa. Anjel Lertxundi

Erdeinutzat hartu zuen besteak. Migel Angel Mintegi

-Eta? -galdetu zion aitak **erdeinuz** . Anjel Lertxundi

-Erretxina halakoa! -bota zion Léak **erdeinuz** -. Jon Muñoz

-Ergelak! -esan zuen, **erdeinuz** eta irmo. Jose Morales

Espainiako trenbide-sarearen nondik norakoa gaitzetsirik, Narváez lehen ministroaren **erdeinuz** ari zen une hartan Arrue maisua. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horrela soilik lor zezakeen exekuzioak eragiten zion **erdeinu** neurrigabea adieraztea eta bere espirituaren azken askatasun-hondar ukiezina atxikitzea. Jose Morales

Arrazoi horrek, zalantzarik gabe, abertzaleen aurka arrazoitu gura du; baina, ezin bozatua barnagoan [...] Espainiaren **erdeinu** gaindiezin baten ozpina erakusten du. Joxe Azurmendi

Semea, hogeita bi urtekoa, garaia, Aitarenganako **erdeinu** gorde batean eta amarenganako ezaxola itxi batean ia gogorturik. Josu Zabaleta

Baina, aspaldi, lagunak ohartu gabe, jendearenganako **erdeinu** lauso bat umotu zen beraren baitan. Jose Morales

Giza botereak beti du berekin nolabaiteko **erdeinu** bat mendean duenarenganako. Xabier Olarra

Orain ikusten dugu espazio hutsari begiratzen diola larderiazko **erdeinuarekin** , han egon zen emakumeari bere jokabide ezmoralarengatik agiraka egin behar izango bailion. Jon Alonso

Benazko **erdeinua** profident hortzen atzean ezkutatzen zuten makina bat saltzaile irribarretsu eta gorbatadunen jostailu baino ez nintzen. Jon Alonso

Oinezko ezjakinei gehiagotasunezko **erdeinuaz** begiratuko die, bizitza eta hiriaren bitxikeria hauei erreparatzen ez dietelako. Jon Alonso

Minduta eta haserre itzuli zen handik Chicagora, arte-munduaren aurkako eta mundu hartan zebilen odol-zurgatzaile eta urdanga diru-gose guztien aurkako **erdeinuz** gainezka. Oskar Arana

Erabateko **erdeinuz** jadanik, inolako begirunerik gabe, etsipenak jotako inozo edo mozkor gisa tratatuz, gauzatzat hartuz, gela arin zeharkatu eta, aldamenetik igarotzean, zakarki bota zion: [...]. Jose Morales

Izuz, tristuraz eta ezin jasanezko **erdeinuz** begiratzen zuten. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Entzun ditut moabdarren irainak, amondarren **erdeinu** -hitzak. Elizen arteko biblia

Zaita, **erdeinu** aire bat begitartean, aho zabalik geratu zen. Patxi Zubizarreta

Maitagarria zara gero -gehitu zuen bizi-bizi, **erdeinu** izpi batez eta errukitsu. Ander Irizar

4 ***erdeinuzko*** *izlag*

Izetari begiratu nion, eta berak orduan niri begiratu zidan, eta **erdeinuzko** keinua egin, Agurea!, esan nahirik bezala. Edorta Jimenez

Erdeinuzko muzina egin zuen. Jon Muñoz

Lisak **erdeinuzko** imintzio bat egiten zuen. Karlos Zabala

Ahaztu bide zuten, nonbait, ilargia bezain zurbila izan zela beti eta **erdeinuzko** hauskortasun halako bat izan zuela betidanik, bular aldea estaltzen zion parpaila bezain fina. Mirentxu Larrañaga

Gizonaren **erdeinuzko** otzantasunaren eraginez bere onetik aterata, izu-laborriak harturik, adimena nahasirik, harrizko horma itsu baten aurrean balego bezala, neskak sorbaldetatik heldu, indarrez bultzatu, eta ohean eserarazi zuen. Jose Morales

Erreguka hasi ordez, aditu-itxurako jarrera **erdeinuzko** batez jardun zion fraideari. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erdeinu eta (5); **erdeinuz begiratu** (5); **erdeinuz begiratzen** (4); **erdeinuz hitz** (3); **eta erdeinua** (5); **eta erdeinuz** (10); **eta erdeinuzko** (3)

---

erdeinugarri ik **erdeinagarri**.

---

erdeinuka *adlag* erdeinatuz.

Neskak, orduan, **erdeinuka** eta purrustadaka: [...]. Patxi Zubizarreta

Endelegatzen nuen adibidez zergatik gasna puska baten amoreagatik, gutariko askok beren aita eta amak eho zitzaketen edo haien mahaietako gasna entrebalekoa baino ez zelako auzoak **erdeinuka** apalets, fedeari bortizki uko egiten zaion manera berdinean. Itxaro Borda

---

erdeinutsu *izond* erdeinuz betea.

Behekoak ez dira ohartzen, zorionez, barnean sentitzen dudanaz, egunetik egunera amarekiko hotzago eta **erdeinutsuago** nagoela, aitari geroz eta mimo gutxiago egiten diodala. Josu Zabaleta

---

erdel ik **erdal**.

---

erdera ik **erdara**.

---

erderakada ik **erderakada**.

---

erderakeria ik **erdalkeria**.

---

erderismo *iz* erderatikako hitza.

Ustekabean harrapatzen haute beti eibartarren **erderismoek**. Pedro Alberdi

Erderismoak erderismo, ordea, euskara beragan ere izan du eraginik euliak. Patziku Perurena

---

erdi[1] **1** *iz* bi parte berdinetan zatitu den osotasunaren zati bakoitza; mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea; *adlag* erdizka. *(ikus beheko konbinatorian* erdi *hitzaren agerraldi maizkoenak, eta* erdi bi, erdi lo, erdiz erdi *eta abarrenak).*

2 ***Erdi Aro*** Historia banatzen den zatietako bigarrena, Antzin Aroaren bukaeratik Aro Berriaren hasiera arte, hots, Constantinoplaren hartzea arte edo, hedatzen dena. ik **ertaro**.

Himmler **Erdi Aroak** eta mitologia ipartarrak liluraturiko gizona da. Alberto Ladron Arana

Badira garai distiratsuagoak, gehiago ezagutzen ditugunak, baina oso ongi azal dezakegu historia Behe-Paleolitotik **Erdi Aroraino** hutsune handirik gabe. Berria - Kultura

Erdi Aroaren mugarriak nahiko ondo markatuta daude historikoki: batetik, Alarikoren sarrera Erroman eta bertako harrapaketa 410ean, eta, bestetik, humanistek aurrera eramandako iraultza kulturala 1400az geroztik. Askoren artean

Erdi Aroaren aurreko ahozko transmisioko hainbat higikundetan dago Kabalaren jatorria, fedea eta mistizismoa sineskeria eta okultismoarekin lotzen baitziren haietan, jainkotasunera iristeko bidetzat harturik. Koro Navarro

Courlanden eta Livonian letoniera, alemana eta errusiera hitz egiten da; alemana, kolonoek **Erdi Aroan** liga hanseatikoaren babespean ekarririkoa, biztanle multzo berezi batek erabiltzen du. Isabel Arrigain

Seneka filosofoa (K.o. 85 hila) oso ezaguna zen **Erdi Aroan** moralista gisa. Askoren artean

Ziur aski literatura helenikoak Berant **Erdi Aroan** Italian izandako berpizkundea [...] funtsean erudizio antolatu gabeko mugimendu bat-batekoa izan zen. Iñaki Mendiguren

Guretzat absolutuak diren balio batzuk, ezezagunak ziren atzo; **Erdi Aroan** absolutuak ziren asko, bazterturik dauzkagu gaur. Joxe Azurmendi

Gisa hortan oroitaraziko da Konpostelarateko beila horiek toki handia hartu zutela kostaldean ere, bereziki **Erdi-Aroan**. Herria

Erdi Arotik Pizkundera arteko bilakaeraren isla dira berrogei tailuok. Berria - Kultura

Erdi Aroko Mendebaldearen historian jakina da normandiarrak bizkortasun harrigarriz igaro zirela konbertsio, buruzagitza eta desagertze-faseetatik. Iñaki Mendiguren

Iruñeko Aldapako San Fermin plazan aparkaleku bat egin nahi du Udalak, baina indusketa lanekin hasi orduko **Erdi Aroko** eta erromatar garaiko aztarna arkeologiko ugari agertu da. Berria - Kultura

Erdi Aroko latinaren ordez, tokian tokiko hizkuntzak erabiltzen hasi ziren edonon. Askoren artean

Heriotza eta judizioa sarri aipatzen ditu **Erdi Aroko** gizakiak, bai eta Frantziskok ere. Askoren artean

Imajina ditzaket soro idor hauetan **Erdi Aroko** bidaiariak, pausoen makaltasunean edota zaldien trosta nekean batetik bestera. Pako Aristi

Erdi Aroko pentsalariek ez zuten formulazio egokirik aurkitu Aristotelesen teoriak gainditzeko. Berria - Harian

Azken baten, "literatura" eta "politika" orain dela gutxiko kategoriak dira eta ezin zaizkio aplikatu **erdi aroko** kulturari ez eta kultura klasikoari ere. Xabier Arregi

Erdi Aroko filosofiak ere gogoz erabili du filosofia greziarra, aristotelismoa neoplatoniar inspirazioarekin osatuz, bien artean sistema teozentriko bat eraikitzeko. Askoren artean

Kodexak: **Erdi Aroko** garai ilunena gainditzen hasi zenean, erregeak, jauntxo berriak alegia, haien boterearen oinarria ezartzen ahalegindu ziren, eta testu idatzia baliatu zuten horretarako. Berria - Kultura

Traste horiek **Erdi Aroko** kondairetatik ateratako ametsak besterik ez dira. Alberto Ladron Arana

Tallin da **Erdi Aroko** iragana ongien gorde duen Europako hirietako bat; XIV. mendekoa da, hain zuzen. Berria - Mundua

Irudi militarrak ohikoak ziren **Erdi Aroko** hagiografian. Askoren artean

Antzinaroko hizkuntzen esparruan erudizio-gizona izatera iritsi zen (Filologia klasikoetan eta Ekialdeko hizkuntzetan doktoregoa lortu zuen Sorbonako Unibertsitatean); **Erdi Aroak** ere urte asko ostu zizkion: [...]. Juan Garzia

Erdi Aroko pentsamendua, filosofiaren ikuspegitik, zinez antzinako filosofiaren jarraipentzat har daiteke. Askoren artean

Pasarte hau eta ondorengoak **Erdi Aroko** feudalismoaren argitan ulertu behar dira. Askoren artean

Erdi Aroko nekazari-gerretatik Frantziar Iraultzako jakobinismoraino. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroko Frantziako eliz mapan, adibidez, apezpiku-hirien mosaikoan Galia Togatako hiri-estatuen eta Galia Comatako kantonamenduen mugak bereiz ditzake historialariak. Iñaki Mendiguren

Susmatzen dugu **Erdi Aroko** gizona zela errotik. Piarres Xarriton

Materia hobeki ezagutzeko gai gara, materia aldatzeko gai, materia berriak sortzeko ere, **Erdi Aroko** alkimista zaharren ametsak egia bihurtu bailiran bat-batean. Pello Salaburu

Bere adierazmolde biziki poetikoan Minnesangaren eragina nabari zuena, hau da, **Erdi Aroko** gorteko zaldunen lirika. Joan Mari Lekuona

Erdi Aroko Mendebaldeko kristauek mundu siriakoari eraso ziotenean kristau-aroko hamaikagarren mendean. Iñaki Mendiguren

Igandean, Gasteizko Alde Zaharrean egingo den **Erdi Aroko** Azokaren aukera aprobetxatu eta grebalariek informazio gunea jarriko dute. Berria - Ekonomia

Data hori, 1494, hezkuntza-agintariek sarri erabili dute Berant **Erdi Aroa** eta Goiz Aro Modernoa banatzeko komeni den lerro zurrun gisara. Iñaki Mendiguren

Bolognak Goiz **Erdi Aroan** "bilketa" intelektuala egiteko izan zuen gaitasunari esker, erromatar zuzenbidearen bertsio bat "hartu" zen aro modernoko Holanda, Eskozia eta Hego Afrikan. Iñaki Mendiguren

Erdi Aro beranduko izenetan ikasia denak, badaki luza litekeela zerrenda. Patziku Perurena

Pasai San Pedro Bacharach alemanarekin alderatzeak **Erdi Aro** ilunena adierazi nahi du. Koldo Izagirre

Erdi Aro amaiera arte, jende arruntak apenas egiten zuen bere odolekoen segimendurik. Patziku Perurena

Zeldaren **erdialdean**, hormari loturik, beste apal bat zabalagoa. Filipe Bidart

Konposizioaren kontzeptu tradizionalak irudiaren **erdialdea** hartzen du kontuan. Josu Zabaleta

Irribarretsu, Mrs. Culveteer pozarren ari zen, sofaren **erdialdean**. Lopez de Arana

Hozteko ura gurpilaren **erdialdera** sartzen denean, palek, hura hartu, eta abiadura handian jirabiratzen dute. Irene Aldasoro

Izterren **erdialderaino** beheratu zizkion galtzak. Harkaitz Cano

Hezur-pareta lodiagoa da hezurraren **erdialdean** muturretan baino. Irene Aldasoro

Kristalinoak kolorea zuzentzeko duen gaitasunaren indargarri gisa, bada pigmentu horiko gune bat erretinaren **erdialdean**. Irene Aldasoro

3 (-ko atzizkiaren eskuinean)

Erabaki zuen ez zitzaiola askorik axola eta auzuneko **erdialderantz** jarraitu zuen. Saloiko **erdialdea** mahai eta eserlekuz betea zegoen, denak ere agertokirantz begira jarrita. Joxemari Iturralde

Harryren idazmahaian jarri nintzen, eta goiko **erdialdeko** tiradera ireki nuen. Oskar Arana

Miss Cardewren familiako legelariak Markby, Markby eta Markby jaunak dira, 149 Lincoln's Inn Fieldskoak, Londresko **erdialdean**. Antton Olano

Miamin itsasoratu ziren, 1958ko otsailaren batean, eta hilaren 8an Nuevitas delako badian lehorreratu, handik Kubako **erdialdeko** mendietara (Las Villas) jotzeko, armak eskuetan. Edorta Jimenez

Baina inbasioa Siberiako **erdialdera** iritsia zen azkenik. Karlos Zabala

Zeilanen, uhartearen eurigabeko **erdialdean** loratu zen Zibilizazio Indikoa. Iñaki Mendiguren

3 (denbora tarteetan)

IX. mendeko bigarren **erdialdea**. Udazkenaren **erdialdea** zen. Jon Muñoz

Horrela jarri ziren abian euskalduntze eta alfabetatze saioak 60ko hamarkadaren **erdialdean**. Koldo Zuazo

Hogeigarren mendearen **erdialderako** egoera oso desberdina zen nabarmen. Iñaki Mendiguren

Kristau-aroko hogeigarren mendearen **erdialdeko** munduan. Iñaki Mendiguren

Kristandade Ortodoxoa egongo zen ziur aski hamargarren mendearen **erdialdeko** gure behatzailearen zerrenda-buruan eta Mendebaldeko Kristandadea azkenean. Iñaki Mendiguren

Behatzaile buruargi batek, Txinako batek adibidez, kristau-aroko hamahirugarren mendearen **erdialdera** Mundu Zaharraren beste muturrera etorri balitz, ziur aski ez zukeen ikusiko Mendebaldeko arrotzak Dar-al-Islam eta "Erromaniatik" [...] kanporatuak izateko zorian zeudela. Iñaki Mendiguren

Dagestanen eta Txetxenian XIX. mendeko **erdialdean** errusiarren kontra sortutako mugimenduaren burua izan zen. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Borroka gogorrak gertatzen ari ziren Bagdad **erdialdean**. Berria - Mundua

Sekula izan gabea nintzen hotel baten barruan, baina sarritxo igaroa nintzen haien ondotik hiri **erdialdera** amarekin egiten nituen osteretan, leku bereziak zirela sumatzeko. Oskar Arana

Frantzisko Italia **erdialdeko** Asis hirian jaio zen. Askoren artean

Artean ere lanean ari zen, berrogeita hemezortzi urterekin, Manhattan **erdialdeko** abokatu-bulego batean idazkari. Oskar Arana

India iparraldeko eta Asia **erdialdeko** lurralde zabaletako agintaria izendatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Abendu **erdialdeko** igande lainotu eta goibel bat zen. Oskar Arana

Urrats batzuk egin zituen taberna **erdialdera**, eta dantzan hasi zen. Koro Navarro

Bata bestearen kontra kuxkurtuta beren gorputzek bat egin dute eta ohe **erdialderantz** mugitzean Lucyk beste larrialdi bat sentitu du, gertu oraingoan txorabio osotik. Joxemari Iturralde

Hanka artean izter **erdialderainoko** zakil sendoa zeraman zintzilik. Aitor Arana

Horiexek izan dira, hain zuzen ere, Mendebaldean eta XX. mende **erdialdera** astialdiaren demokratizazioa ekarri dutenak. Berria - Gaiak

Mundu Gerra ostetik 1960ko hamarkada **erdialde** arte jaiotakoa erretiroa hartzen doan neurrian. Berria - Ekonomia

• **5** *iz* erdialdeko pertsona.

Orain arte ez baitugu herri honetan **erdialdekorik** ikusi. Agustin Otsoa

-Zer esan diezadakek hik, **erdialdeko** horrek? Agustin Otsoa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erdialde eta (8); **erdialde eta ekialdeko** (5); **erdialdea arte** (4); **erdialdea baino** (4); **erdialdea eta** (7); **erdialdea zen** (4); **europa erdialde** (5); **europa erdialde eta** (5)

abenduaren erdialdean (4); **abuztuaren erdialdean** (7); **asia erdialdean** (5); **asiaren erdialdean** (3); **azaroaren erdialdean** (3); **bagdad erdialdean** (5); **bigarren erdialdean** (8); **ekainaren erdialdean** (5); **erdialdean bizi** (4); **erdialdean bost** (3); **erdialdean dago** (4); **erdialdean dagoen** (5); **erdialdean duen** (4); **erdialdean edo** (5); **erdialdean egingo** (3); **erdialdean eta** (21); **erdialdean eta euskara** (4); **erdialdean hasi** (6); **erdialdean muturretan** (3); **erdialdean muturretan baino** (3); **erdialdean sartu** (3); **erdialdean zegoen** (5); **eta erdialdean** (17); **europa erdialdean** (5); **europako erdialdean** (6); **gazako erdialdean** (4); **hamarkadaren erdialdean** (32); **hamarraldiaren erdialdean** (5); **hiri erdialdean** (3); **hiriaren erdialdean** (3); **hiriburuaren erdialdean** (4); **hiriko erdialdean** (3); **hogeigarren mendearen erdialdean** (4); **irak erdialdean** (3); **lehen erdialdean** (3); **martxoaren erdialdean** (4); **mende erdialdean** (3); **mendearen erdialdean** (19); **mendebalean eta erdialdean** (3); **otsailaren erdialdean** (4); **pirinioetako erdialdean** (5); **sailkapenaren erdialdean** (8); **sailkapeneko erdialdean** (7); **urtearen erdialdean** (4); **uztailaren erdialdean** (5)

erdialdeaz geroztik (4); **erdialdeaz jabetu** (3)

afrika erdialdeko (5); **asia erdialdeko** (8); **asiaren erdialdeko** (15); **asiaren erdialdeko herriek** (3); **bigarren erdialdeko** (5); **edo erdialdeko** (3); **erdialdeko amerika** (8); **erdialdeko amerikako** (11); **erdialdeko amerikan** (8); **erdialdeko ameriketan** (3); **erdialdeko arabako** (7); **erdialdeko asiako** (8); **erdialdeko asiako ipuina** (4); **erdialdeko beste** (3); **erdialdeko eskualdeetan** (4); **erdialdeko eta** (17); **erdialdeko eta ekialdeko** (3); **erdialdeko eta hegoaldeko** (3); **erdialdeko euskalkia** (4); **erdialdeko euskalkian** (4); **erdialdeko hainbat** (4); **erdialdeko herriek** (3); **erdialdeko hiri** (3); **erdialdeko kale** (3); **erdialdeko lurraldean** (6); **erdialdeko lurraldeko** (4); **erdialdeko mendikatean** (3); **erdialdeko mendikateko** (4); **erdialdeko zenbait** (3); **eta afrika erdialdeko** (3); **eta asia erdialdeko** (5); **eta asiaren erdialdeko** (3); **eta erdialdeko** (28); **eta erdialdeko amerika** (3); **europa erdialdeko** (6); **europako erdialdeko** (6); **hiri erdialdeko** (4); **hiriaren erdialdeko** (5); **hogeigarren mendearen erdialdeko** (3); **iparraldeko eta erdialdeko** (3); **mendearen bigarren erdialdeko** (3); **mendearen erdialdeko** (6); **mendebaleko eta erdialdeko** (3); **txina erdialdeko** (3); **urtarril erdialdeko** (3); **zein erdialdeko** (4)

erdialdekoak dira (5)

abenduaren erdialdera (3); **abuztuaren erdialdera** (3); **apirilaren erdialdera** (3); **erdialdera arte** (12); **erdialdera hasi** (3); **erdialderantz jo** (4); **erdialderantz jo zuen** (3); **erdialdetik aurrera** (14); **erdialdetik eta** (3); **hamarkadaren erdialdera** (7); **hamarkadaren erdialdetik** (4); **hogeigarren mendearen erdialdera** (3); **maiatzaren erdialdera** (6); **maiatzaren erdialdera arte** (3); **mendearen erdialdera** (16); **mendearen erdialdetik** (6); **mendearen erdialdetik aurrera** (4); **partidaren erdialdera** (3); **urriaren erdialdera** (4); **urtearen erdialdera** (4)

---

erdialegia *iz* erdizka alegia dena.

Erdialegiazko iraganaldi baten kanonizazio horrek zirrara txikia eragin zuen Tsin-go gobernari eta herriarengan, eta landu gabeko marka-estatu honen erakundeen bat-bateko ezarpenak arrangura bortitza sortu zuen. Iñaki Mendiguren

---

erdiamaitu, erdiamai(tu), erdiamaitzen du *ad* **1** erdizka amaitu.

Erdiamaitutako produktu luzeak ekoizten ditu. Berria - Ekonomia

2 (era burutua izenondo gisa)

Katek, Boldan **erdi amaituari** eutsita, barraren beste puntatik egiten zion so aspaldian handik azaldu zen berritasun xelebre eta bitxienari. Sonia Gonzalez

---

erdiarazi, erdiaraz, erdiarazten du *ad* erditzera behartu.

Alaba berarekin hartu zuen eta erizain batekin batera ezkutuan alaba haurraz **erdiarazi** zuten. Gotzon Garate

erdiaristokrazia *iz* erdizkako aristokrazia.

Hiru probintzietako eta Nafarroako baserritar eta kapare zahar haiek, Pirinioetako bi aldeetako nekazari **erdiaristokrazia** hark, Borboi harengan sinesten zuen, atzerritar arrunta eta atzerritartua izanagatik ere. Koro Navarro

---

erdiarotar *izond* Erdi Aroari dagokiona.

Gotorleku **erdiarotar** bateko dorreak eta almenak: Operako bastidoreak! Joxe Austin Arrieta

---

erdiasmatu ik **erdi**[1] **2**.

---

erdiatzerritar *izond* erdizka atzerritarra dena.

Erdiatzerritarra (tindu iranikoa). Iñaki Mendiguren

Erdiatzerritarra (Mendebaldeko tindua). Iñaki Mendiguren

Erdiatzerritarra (tindu islamikoa). Iñaki Mendiguren

Erdiatzerritarra -gorputz nagusikoa. Iñaki Mendiguren

Erdiatzerritarra – Islamikoa. Iñaki Mendiguren

---

erdiautomatiko *izond* erabat automatikoa ez dena.

Izerditan neuzkan eskuak; Winchester markako errifle **erdiautomatiko** bat neraman, eta indarrez heldu nion. Rafa Egiguren

---

erdibana ik **erdi**[1] **3**.

---

erdibanakako *iz* erdi bana eginiko gauza.

Nengoen-nengoenean -204 egun zertu gabe!-, **erdibanakako** hori ere ez zen hain moldaketa txarra niretako. Aingeru Epaltza

---

erdibanatsu *adlag* gutxi gorabehera erdi bana.

Erdibanatsu Unamuno-rekin eta haren aurka, Aita Villasante eta S. Mitxelena frantziskotarrak. Joxe Azurmendi

---

erdibanatu, erdibana(tu), erdibanatzen **1** du *ad* erdi bana egin edo eman. ik **erdibitu**.

Aitak ondasunak **erdibanatu** zizkien, eta bazirudien biek ala biek ere ondare berbera izan behar zutela, baina ez zen halakorik gertatu. Patxi Zubizarreta

Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin **erdibanatzeko**. Elizen arteko biblia

Murru arteko Donostia hartara itzuli nahi nuen nik. "Neure Donostiara", eta Putzu kaleko "neure gelara": Martxel anaiarekin **erdibanatzen** nuen hartara. Txillardegi

Norbaiten idiak beste batena adarkatzen badu eta hiltzen, idi bizia saldu egingo dute, jasotako dirua eta hildako idiaren okela **erdibanatuz**. Elizen arteko biblia

Atsekabea **erdibanaturik**, are eta estuago lotuak sentitzen ziren bata bestearekin. Karlos Zabala

Baita zurtoin txikiak ere, **erdibanatutako** iruditxoak dituztenak gizakien edo animalien buruekin. Santiago Iruretagoiena

Bidezko da Jaunari berriro itzultzea Beragandik jasotako guztia: barruko begirada, Beragana bakarrik zuzendutako bihotza, ezerekin eta inorekin **erdibanatu** gabe, egiaz bat den bihotza. Joan Mari Lekuona

Hainbat arrisku **erdibanatuak** ginen Petain-ek hitlerianoen eskuetan utzi gintuen arte. Koldo Izagirre

Izan ere ezkerreko aldea bitan zatitzen baitzion orbainak, eta **erdibanatuta** baino, herenduta zeukan gizon hark bisaia. Hasier Etxeberria

2 (era burutua izenondo gisa)

Bueno, nolabait disfrutatu zenuen, norbaitekiko lehen ukituak ematen duen ziurtasunaz, lehen musuak ematen duen botereaz, lehen izerdi **erdibanatuak** ematen duen maitasun sakonaz. Lourdes Oñederra

---

erdibarbaro *izond* erdizka barbaroa.

Mustafa Kemal imitatzeko Afganistango Amanullaren ahalegina, bere erresuma **erdibarbaroaren** arlo askoz ere zailagoan egina, norberaren joeraren arabera, tragedia edo komediatzat har daitekeen esperimentua izan zen. Iñaki Mendiguren

Hamazazpigarren mendean Ming dinastia mantxu **erdibarbaro** kementsuek ordeztu ondoren, kontinente barruko arrisku horren errepikapena ez zen beste berrehun bat urtez agertu. Iñaki Mendiguren

---

erdibasa *(orobat **erdi basa**) izond* erdizka basa.

Bere mendi kaskoetan, zaldun bakar ibiltzea, iragan mendeetako hondakin **erdibasa** iduri, bere buru hertsiko asmaketak hausnartuz, mundu guztiaren itzulian parte hartzeko orde eta hari interesatu gabe. Piarres Xarriton

Zakur **erdi basa**, igortzen genuen ardien biltzera. Itxaro Borda

Aipatzen bestalde gure behiak, eta orrialde bat osoa eskaintzen betizuari, abere arraroa dela karkulaturik hain segur, beste nihun ikusten ez dena, nahiz Euskal-Herrian ere guti ikusten den orai muga hegi hortako behi **erdi-basa** hori. Herria

Gauez arboladian ibiltzen nintzen, kaminoan ibilaldi axolagabeak eginez, neuk bakarrik sortu eta eratutako giro **erdibasaren** inguruan. Javi Cillero

---

erdibasamortu *(orobat **erdi basamortu**) iz* erdia basamortua den eremua.

Karkulak egin behar, nehor ez baitut alabaina ikusiko tenore eta **erdi basamortu** honetan. Piarres Aintziart

Nomadek antzeko urte-zikloa zertu zuten, **erdibasamortu** zen estepan artzain ibiliz. Iñaki Mendiguren

Ur urdin garbi hau **erdi basamortu** batean. Piarres Aintziart

erdiberri[1] *izond* erditu berria.

Emazte **erdiberri** bat bezain zurbil dago eta, arrisku latza pasa izanaz harro. Itziar Otegi

erdiberri[2] *(corpusean **erdi berri** soilik) izond* erdizka berria dena.

Edo **erdi berria**, duela hamabi urte hauteskundeak irabazi baitzituen eta azken lehian galdu. Berria - Euskal Herria

Antzinako leloak berreskuratu zituen, beren xarma galdu ez dutenak: hasierako 1976ko *Lord of the Starfields*, agurreko 1979ko *After the rain* (oso pieza ederra) eta erritmoz beteriko *Tie me at the crossroads*, 1985ko *World of wonders, Dangerous times, Night train* eta *My beat* **erdi berriak**, *Pacing the cage, Planet of the clowns, Call it democracy.* Berria - Kultura

erdibi ik **erdi[1] 4**.

erdibide **1** *iz* bi mutur edo burutatik distantzia berera dagoen puntua.

Bera Pariserako **erdibidean** bizi da. Berria - Harian

Kontua da besteak ere burukada jotzeko asmo berbera izan zuela eta, horrela, bi buruek **erdibidean** egin zuten topo. Koldo Biguri

Zorionez, kate horretan **erdibidean** zaude oraindik. Unai Iturriaga

Altxatzekoa egin nuen, baina **erdibidean** gelditu nintzen. Aingeru Epaltza

Maistrak ipuina **erdibidean** eteten du; haurrok ez gara mugitzen, istorioaren jarraipena jakiteko irrikaz eta jakin-minez. Juan Kruz Igerabide

-Nortaz ari haiz? -galdetu diot nik, edalontzia **erdibidean**, ezpain biak zabal-zabal. Patxi Iturritegi

Hizkuntza naturalaren eta hizkuntza erabat artifizialaren **erdibidean**. Askoren artean

Tabernara eramaten zuen korridorean, **erdibidean** zegoela, ilunpetan, gela pribatutik zetozen beste bi ahots haserretu entzun zituen Harryk. Iñaki Mendiguren

Gaztelurako **erdibidean** zeudela, Harryk, bere ezkerretara begiratzean, barrua estutu zion zerbait ikusi zuen: begi-pare bat, ilunpetan dir-dir. Iñaki Mendiguren

Aliterazioaren eta tautogramaren arteko **erdibide** horretan. Iñaki Arranz

Erdibidean utzi nituen ikasketak noiz edo noiz bukatuko ditudan esperantzan. Xabier Etxabe

Ekialdeko Europa da, Ekialde Urrunaren eta Latino Amerikaren arteko **erdibidean**, munduko ekonomiaren baitan kokatzeko semiperiferiak duen hirugarren modua. Koro Navarro

Terri **erdibidean** elkartu zitzaion. Koro Navarro

2 muturreko bi egoera edo jarreren arteko bi egoera edo jarrera.

Eutanasia erabat onartzearen edo deus ez arautzearen artean, **erdibidea** hautatu dute. Berria - Euskal Herria

Borroka militarrak iraun zuen bitartean, hezkuntza, gizarte eta alfabetatze alorreko proiektu aurrerakoi guztiak **erdibidean** gelditu ziren, eta ezin izan genituen kanpaina haiek bururaino eraman. Berria - Mundua

Adostasunera eramango zuen **erdibidea** proposatu zuen sailburuak, eta hari jarraitu zioten alde biek. Berria - Harian

Ametsak **erdibide** guztiak higuin dituelako, beharbada. Iñaki Segurola

Hor gehiago luzatu da kalapita, ezetz eta baietz, **erdibide** moduko bat adostu arte: hiru argitatik bat egongo omen da piztuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Maila politikoan helburua **erdibide** bat aurkitzea zen bi mutur beldurgarriren -parroki estatuen borroka suntsigarriaren eta *knock-out* kolpearen bidez ezarritako bake suntsigarriaren- artean. Iñaki Mendiguren

Garai hartako anglo-eskandinaviar planteamendua **erdibide** bat aurkitzeko ahalegina zen, enpresa pribatua eta gizarte-justiziaren interesetan gobernu-arauketa konbinatzeko proba eginez. Iñaki Mendiguren

Irekita dago, halaber, salbaziorako **erdibide** bat, non ordena zaharraren eta abiapuntu berriaren arteko egokitzapena harmoniara irits daitekeen goragoko maila batean. Iñaki Mendiguren

Erdibide epel bat ere zilegia zen, bi posturen arteko zubia: aurreratu dute, baina polizia tontoa da; edo, ez dute aurreratu, baina polizia ez da tontoa. Karlos Linazasoro

Proposamenean aldaketak terminologian egitera mugatu dira, erabaki subjektuaren auzian lehengoari eusten baitiote, Quebeceko ereduak proposatzen duen **erdibide** horretara etorri gabe oraindik. Berria - Euskal Herria

Narratzaileak harturiko jarreran dagoela gakoa: narratzailea Nerearengandik hurbil kokatzen zaigu, baina aldi berean distantziatik mintzo da, eta beharbada **erdibide** honek ez dio onik egin ez samurtasunari (hurbiltasun handiagoa eskatuko lukeena), ez ikuspegi berritzaile bati. Berria - Kultura

EAJk, EAk eta EB-Berdeek atzera bota zuten PPk eta PSE-EEk hitzartutako **erdibideko** zuzenketa. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina erdibidean (5); **dago erdibiderik** (11); **du erdibiderik** (3); **erdibide bat** (14); **erdibide bat bilatu** (3); **erdibide horretan** (3); **erdibidea hautatu** (3); **erdibidean dago** (6); **erdibidean dagoela** (3); **erdibidean gelditu** (10); **erdibidean geratu** (12); **erdibidean geratzen** (4); **erdibidean utzi** (3); **erdibidean zegoela** (4); **erdibidean zela** (3); **erdibideko zuzenketa** (5); **erdibiderik ez** (5); **eta erdibide** (3); **eta erdibidean** (5); **eta erdibideko** (9); **ez dago erdibiderik** (11); **ez du erdibiderik** (3)

erdibidetasun *iz* erdibide gertatzeko nolakotasuna.

Provenzako legelari horren biografia usuenak bat datoz Portalisen **erdibidetasuna** aipatzerakoan. Andres Urrutia

erdibidetu, erdibide(tu), erdibidetzen du *ad*

Bi aro ditu literatura honen historiak, eta Campionek **erdibidetzen** ditu biak. Berria - Kultura

erdibiketa *iz* erdibitzea.

Ikusirik abertzaleen eta ez abertzaleen arteko **erdibiketa**, eta abertzaletasunaren baitako zatiketa, konponbide orokor hori labirinto baten itxuran agertzen zaigu gaur egun. Joseba Zulaika

erdibiluzi ik **erdi[1] 6**.

erdibiluzik ik **erdi**[1] **7**.

erdibitarteko *izlag* tartekoa.

Geroko gero horretan nortasuna badago, ez da umetan edo gaxtetan bezala, non ez baitago nortasun agiririk (nortasun ageririk?), baina ezta nortasuna aldakorra omen deneko **erdibitarteko** urte luze gero-eta motzagoetan gertatzen dena ere. Iñaki Segurola

erdibitu, erdibi, erdibitzen du *ad* **1** du *ad* bi partetan zatitu, erdi bi egin.

Erdibi ezazue bizirik den haurra, eta emaiezue erdibana. Elizen arteko biblia

Idoiaren ama erditzen edo **erdibitzen** ari dela esango luke edonork. Eider Rodriguez

Metrailadore bala batek bihotza **erdibitu** zion. Alberto Ladron Arana

Min bat sartu zitzaidan bihotzean, **erdibitzera** balihoa bezala. Juan Kruz Igerabide

Esaten zuen segarekin erleak **erdibitzeko** kapaz zirela. Unai Elorriaga

Agiria idatzi eta biok sinatu ondoren, **erdibitu** egin nuen, biok erdibana izateko. Elizen arteko biblia

Orri bat **erdibitu**, eta zatietako bat eskaini zidan arkatzarekin batera. Ramon Saizarbitoria

Sena ibaia, Ibaizabal baino zabalagoa, Bilbo baino hiri handiago bat **erdibitzen**. Unai Iturriaga

Alemania **erdibitzen** zuen harresia. Hasier Etxeberria

Hiru bat aste lehenago Lisboako hotel bateko kafetegian bitan **erdibitu** ondoren abandonatutako argazkiaren erdia zen. Harkaitz Cano

Badakizu zer den zure barruan **erdibituta** egotea? Harkaitz Cano

Zuzenki bat, denik eta handiena izanik ere, beste zernahi zuzenki baino txikiago bihur daiteke, denik eta txikiena izanik hura, baldin eta behin eta berriz **erdibitzen** bada. Jon Muñoz

Indarren batek bat-batean zartada azkarrez **erdibitu** eta zati biak bereiz utziko balitu, arimaren indarra ere gorputzarekin batera ebakia eta **erdibitua** litzateke. Xabier Amuriza

Angelu bat bi zati berdinetan **erdibitzeak** erdikariak eraikitzea dakar. Jon Muñoz

Arma jaitsi huen, arreta handiz, airea **erdibitzeak** hire asmoak salatu ahal izango balitu bezala: unea pasatua zuan. Xabier Olarra

2 irud/hed

Zirrara batek **erdibitu** nau. Harkaitz Cano

Koadro bat marraztu du, lerro bertikalez **erdibitu** du koadroa eta, bi marra horizontal eginez, sei espazio utzi ditu koadro barruan. Joseba Sarrionandia

3 (era burutua izenondo gisa)

Non edo non ikusita zeneukala haren aurpegi **erdibitu** beldurgarria. Hasier Etxeberria

Azken batean, arima **erdibituak** ezinbizia dakarkio gizonari eta, gogoa hain nahasia izanik, ezin, bada, erabakirik hartu. Patxi Zubizarreta

Tipoa hilezina zen nonbait, akabatu zutenetik suge **erdibitua** bezala ugaltzen zen. Harkaitz Cano

Piztia baten apatx **erdibituak** utzitako oinatzaren atzetik bidalitako txakur aldrak beraganaino garamatza. Xabier Amuriza

Sugearen antzera, Sethek ahoa zabaldu zuen, eta betortzak eta mizto **erdibitua** ez baizik egia jaurti zuen. Anton Garikano

Katalogotik erauzitakoa bata eta kafetegian ahazturik utzi zuen argazki **erdibituaren** erdia bestea. Harkaitz Cano

Elkar laztandu dugu ia elkar ukitu gabe, leialtasun **erdibiturik** gabe, denboratik kanpo. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argazki erdibitu (3); **bat erdibitu** (4); **bihotza erdibitu** (9); **bihotza erdibitu zion** (4); **bihotza erdibiturik** (6); **bihotza erdibitzeko** (3); **bihotza erdibitzen** (3); **erdibitu egin** (7); **erdibitu egiten** (3); **erdibitu eta** (5); **erdibitu zion** (5); **erdibituta zegoen** (5); **erdibitzen du** (4); **erdibitzen duen** (12); **erdibitzen zuen** (8); **eta erdibitu** (3); **zelula erdibitzea** (3); **zelulen erdibitzea** (3)

erdibitzaile **1** *iz* erdibiden duen gauza.

Angelu bat bi zati berdinetan erdibitzeak erdikariak eraikitzea dakar; zuzenki batekin gauza bera eginez gero, horra **erdibitzailea**. Jon Muñoz

2 errepide eta autobieetan, noranzko bateko eta besteko erreiak bereizten dituen marra edo eragozpena.

Automobilak autobideko **erdibitzailea** jo zuen eta gidariak kolpe itzela jaso zuen. Berria - Euskal Herria

Bietako batek, Opel Vectra zuri batek, errepideko **erdibitzailea** ere gainditu zuen, eta gurpilez gora zegoen, haitzek azpian harrapatuta. Berria - Harian

Hildakoaren autoak bideak bereizteko **erdibitzailea** gainditu zuen eta kontrako bidean zihoan kamioi bat jo zuen. Berria - Euskal Herria

Gainera, errepideko **erdibitzailea** jo zuen aipatutako ibilgailuak. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erdibitzailea jo (4); **erdibitzailea jo zuen** (3); **errepideko erdibitzailea** (4); **errepideko erdibitzailea jo** (3)

erdibitze *iz* bi partetan zatitzea, erdi bi egitea.

Horrenbestez esku hartu baitzuten gutariko bakoitza jaioa deneko **erdibitze**-, bikoizte eta bategite prozesu sotilean. Juan Garzia

Mikroorganismoetan, zera adierazten du klon izenak: **erdibitzez** -hots, ugalketa sexugabez- organismo bakar batetik datozen banakoen multzoa. Juan Garzia

Mikroorganismoetan, zera adierazten du klon izenak: **erdibitzez** -hots, ugalketa sexugabez- organismo bakar batetik datozen banakoen multzoa. Juan Garzia

Epidermisaren azpiko geruzako ehun berria sortuz berdintzen da galera hori (zelulen **erdibitzearen** bitartez). Irene Aldasoro

Honelatsu doan prozesua, espermatozoide baten eta obulu baten elkartzeak abiarazia: arrautzaren **erdibitzea**, hots, lehenbizi bi, gero lau zelula sortzea; gero zelula-bolatxo bat, gero poltsatxo bat. Juan Garzia

Kolibaziloaren mutanteak bakartu eta aztertzeari ekin genion; **erdibitzea** edo/eta erreplikazioa matxuraturik zeuzkatenak, alegia. Juan Garzia

Badira zenbait molekula talde beren horretan dirautenak, beren kargu baitituzte estu loturiko molekulok funtzio orokor batzuk, hala nola zelula **erdibitzea** edo mintzetik zelularen gunera seinaleak igortzea. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zelulen erdibitzea (3)

erdierazko *izond*

Saizarbitoriak hirieuskara **erdierazkoa** baino askoz ere errexago eta biziago ikasi diat nik emakumeen hikako hizkera. Patziku Perurena

erdiero *izond* erdizka eroa.

Arrantzale horiek, Mucklebackit etxolako gizarajo **erdiero** zaharrak, hauek denek hain kementsu sentiarazi zuten, zamaren batetik hain arindurik, non zuzperturik eta garaile sentitu eta ez baitzuen malkoak menderatzerik eduki. Anton Garikano

erdierotu, erdiero(tu), erdierotzen da/du *da* erdiero bihurtua.

Erdiurratuak, **erdierotuak** ... Patziku Perurena

erdiesan, erdiesan, erdiesaten **1** du *ad* erdizka esan.

Ez zidan galdetu zer egin behar nuen, ez zidan "elkarrekin bazkalduko dugu", edo "etorri nire bila" esan, edo beste urte batzuetan nire **erdiesanak** ulertu zituela aditzera ematen zidan ezer. Juan Martin Elexpuru

Arrainaren begiak uraren gainean ikusten zituenean, “Harrapatu zaitut” **erdiesango** zuen. Joseba Sarrionandia

Eta chill-in aldera joango da, “Love stream” edo horrelako zerbait **erdiesanez** . Joseba Sarrionandia

2 (era burutua izen gisa)

Akusazio larria da, eta plazaratu badute heldulekuren bat dutelakoan izango da, baina beti da arriskutsua halako **erdiesanekin** ibiltzea. Berria - Euskal Herria

erdiesferiko *izond* esfera erdiaren forma duena.

*Bóveda, cúpula, cimborrio, tolva, tubo, tuba, tubula, kubos, kiborion...*bezalako hitzek, grekeratik latinean barrena sustrai bera nabari baitute: sorreran irudi geometriko biribil (koniko, zilindriko, **erdiesferiko**) orori zegokiona, alegia. Patziku Perurena

erdiespen *iz* erdiestea.

Uste baino **erdiespen** handiagoa izan du aitzineko igandean Hiriburun iragan den kultur topaketak. Herria

Erdiespen estetikoen bitartez. Askoren artean

erdieste *iz* lortzea, iristea.

Bertzetik, zure **erdiesteak** zirrara handiagoa duke, desleialtasunari emanen baitio bide. Jon Muñoz

"Kondea edo markesa izan nahi diat, eta kondea edo markesa izanen nauk", noblezi titulu haien **erdiestea** bere bizitzako ametsa balitz bezala, bere nahi beroa bezain eroa. Joan Mari Irigoien

Ez da beraz harrigarria nihauri baizik zor ez diodan **erdieste** hori are baliosagoa izatea niretzat. Jon Muñoz

Barne muinetik uste du **erdieste** hori bere hitz ederrei zor diela: zuhurtziazko izari hori beharrezkoa zitzaidan arriskutan sartu nahi ez banuen. Jon Muñoz

Lehen **erdieste** horrek akuilaturik, saiatu nintzen neure begitarteko keinu anitzak era berean moldatzen. Jon Muñoz

Duda egiten bainuen oraino hain **erdieste** zoriontsuaz, izu handi baten irudia egin nuen. Jon Muñoz

erdiestearren *adlag* erdiesteko.

Maisuaren libertatea **erdiestearren** azken ahalegin bat egiteko. Edorta Jimenez

erdietsarazi, erdietsaraz, erdietsarazten du *ad* erdiestera behartu.

Erraten du orobat ezen, baldin gida zaitzan uzten badiozu, hark **erdietsaraziko** dizkigula elkar ikusteko bideak, zuk batere arriskurik izan dezazun gabe. Jon Muñoz

erdietsezin *izond* ezin erdietsizkoa.

Adierazi nahi dut ikuspen hori zirriborraturik dagoela eta **erdietsezina** dela bere izaeragatik beragatik, eta gizaki bikainaren adimenak, bere izaerak erdiets dezakeena lorturik ere, ondoren ikuspen sakonagoa nahi izaten du. Xabier Kintana

erdietsi, erdiets, erdiesten **1** du *ad* lortu, iritsi.

Ea zer **erdiesten** duzuen. Xabier Montoia

Herriko etxe zein elizetan baitzen eskean dirurik gehiena **erdiesten** . Itxaro Borda

Zerbait **erdietsi** behar badugu, horrela dugu lortuko. Berria - Ekonomia

Maisua askatzea **erdietsi** ezean Basurtoko jauna eta beste batzuk [...] Ofizio Santuaren aurrean salatuko nituela. Edorta Jimenez

Urtebete gabe legioek garaitiaren berri eman zuten, baina nik doi-doi **erdietsi** nuen Marte-ren begitartea ikustatzerik. Juan Garzia

Nahi duen informazioa **erdietsi** arte ez du kapitainak etsiko. Xabier Montoia

Dohatsutasuna **erdiets** dezan, graziari eta egintza onei esker. Piarres Xarriton

Euria ari zuen, burua apalik gero elizako kalostrapean, auzoen eta ahaideen zorionak **erdietsi** zituen. Itxaro Borda

Nola **erdietsi** eta nola eskuetaratu nuen nik neure libertate hura? Joan Mari Irigoien

Zein loria eskasa garaipena **erdietsiz** gero! Jon Muñoz

Ronaldok 28 gol **erdietsi** zituen Interrekin 1997-1998 denboraldian. Berria - Kirola

Norbaiti laket gertatzea ez da gizonarentzat **erdiesteko** baliabide bat baizik; emakumearentzat berriz huraxe da **erdiestea** . Jon Muñoz

Hire baietza **erdietsi** arte, ez nauk ohe honetarik mugituko! Daniel Landart

Gutun hauek eragintza handiz lagun dezakete xede hori **erdiesten** . Jon Muñoz

Aurretik alderdiek adostasun zabala eta askotarikoa izango duen akordio bat **erdietsi** behar dela. Berria - Harian

Akordioa lau puntu nagusiren inguruan **erdietsi** zuten. Berria - Euskal Herria

Errugbian, Aviron taldeak lehen garaipena **erdietsi** du 20/18 bere zelaian larunbatean. Herria

Coetzeek **erdietsi** zuen literaturaren sari ospetsua. Berria - Kultura

Azkenean Salamancan hizkuntza eta literatura grekoaren katedra **erdietsi** du. Joxe Azurmendi

1952an, Laurak-Bat euskal-etxearen 75 urteak betetzen zirelarik, bertan antolatu zuen margolari baskoen erakusketa, arrakasta handia **erdietsi** zuena. Edorta Jimenez

Enpleguak «marka historikoa» **erdietsi** du, Azkarragaren ustez. Berria - Ekonomia

Gobernuaren eta oposizioaren arteko bileran ados jartze mugatuak **erdietsi** dituzte. Berria - Mundua

Zu **erdiesteko** asmorik gabe, zu merezi izaten ahalegindua nintzen. Jon Muñoz

Polizia izateko etsamina **erdietsi** berri zuen. Itxaro Borda

Espainiako Inkisizioak **erdietsi** zuen Aita Sainduaren mandataritza Carranzaren preso hartzeko eta auzitan ezartzeko. Piarres Xarriton

Hobe litzateke Erromako erregistroetarik oroitzapen gaizto hura ezezta dezaten **erdiestea**. Piarres Xarriton

Kontulari-lan bat **erdietsi** zuen oihal-denda batean, Nahi duen informazioa **erdietsi** arte ez du kapitainak etsiko. Oskar Arana

Ez hain erraz bertan behera utzi ondasun hoberena eta garbiena, ezin **erdiets** daitekeen gauza bailitzan. Joan Mari Lekuona

Bakoitzaren egintzak heltzen ez diren eremua horrekiko ezin **erdietsizkoa** baita, eta ezinezkoa ezin egitea ez da langilearengan inolako akatsa. Xabier Kintana

2 (adizlagunekin)

Emazteak alabarengandik tantaka **erdiesten** zuen informaziotik abiatuta, bi-hiru lagun jarri nituen lanean. Aingeru Epaltza

Gauzak aldatzearen kostua handia dela, aurrez **erdietsitako** lorpenen bat zalantzan jarri daitekelako. Iñaki Heras

Egunean aportatu beharreko proteinak [...] erraz **erdiets** daitezkeenez, baliteke haragiaren kontsumoa dezente jaitsi edo erabat jateari utzi eta landarezkoekin moldatzea. Edorta Agirre

Zeren nekez **erdietsia** estimatzen baita, eta fite **erdietsia** arbuiatzen. Joan Mari Irigoien

Ahoz **erdietsi** informazioa askiesten ez zuelarik, bertzalde, beldurrik batere ez zien bide katramilatsuagoei. Aingeru Epaltza

Faltsutzaileak arrazakeriaren aurkako militanteak ziren eta bere helburua bete-betean **erdietsi** zutela esan daiteke. Txema Ramirez de la Piscina

Jainkoak haren bidean ipini zuela irudi zuen, helburua onik **erdiets** zezan, eta orain hila zegoen. Karlos Zabala

Ene guztia neure baitarik eta neure eskuz **erdietsi** diat. Aingeru Epaltza

· Merezimendu osoz **erdietsi** uste dudan segurantzaz gozatzera. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erdiets ahal (3); **erdiets dezan** (3); **erdiets ez** (3); **erdiets zezan** (4); **ezin erdiets** (4)

adostasuna erdietsi (5); **adostasunik erdietsi** (5); **akordio bat erdietsi** (3); **akordioa erdietsi** (8); **arrakasta erdietsi** (4); **bai erdietsi** (3); **bai erdietsi ere** (3); **baimenik erdietsi** (3); **bat erdietsi** (25); **bat erdietsi zuen** (7); **bidez erdietsi** (3); **du erdietsi** (7); **dute erdietsi** (3); **egitea erdietsi** (6); **erdietsi ahal** (8); **erdietsi ahal izan** (5); **erdietsi ahal izateko** (3); **erdietsi arte** (5); **erdietsi baino** (3); **erdietsi baino lehen** (3); **erdietsi baitzuen** (4); **erdietsi baitzuten** (3); **erdietsi behar** (19); **erdietsi behar dela** (3); **erdietsi behar du** (3); **erdietsi beharko** (5); **erdietsi bere** (3); **erdietsi dela** (4); **erdietsi ditu** (11); **erdietsi ditugu** (3); **erdietsi dituzte** (3); **erdietsi du** (47); **erdietsi duen** (5); **erdietsi dugu** (5); **erdietsi dut** (7); **erdietsi dute** (14); **erdietsi duten** (3); **erdietsi ere** (9); **erdietsi eta** (8); **erdietsi ez** (19); **erdietsi ezean** (7); **erdietsi gabe** (8); **erdietsi izana** (4); **erdietsi izanak** (3); **erdietsi nahi** (27); **erdietsi nuen** (17); **erdietsi ondoren** (3); **erdietsi ostean** (3); **erdietsi zituen** (30); **erdietsi zituen eta** (4); **erdietsi zuela** (5); **erdietsi zuen** (78); **erdietsi zutela** (3); **erdietsi zuten** (32); **erdietsi zuten eta** (3)

ere erdietsi (7); **esker erdietsi** (4); **eta erdietsi** (7); **eta hala erdietsi** (4); **ez du erdietsi** (5); **ez nuen erdietsi** (5); **ez zuen erdietsi** (3); **garaipen erdietsi** (3); **garaipena erdietsi** (16); **garaipena erdietsi du** (4); **garaipena erdietsi zuen** (6); **garaipena erdietsi zuten** (3); **gehiago erdietsi** (3); **gol erdietsi** (6); **gol erdietsi zituen** (3); **gola erdietsi** (4); **gola erdietsi zuen** (3); **gorena erdietsi** (3); **hala erdietsi** (4); **halatan erdietsi** (3); **handia erdietsi** (4); **handiena erdietsi** (3); **helburua erdietsi** (5); **helburuak erdietsi** (3); **hori erdietsi** (6); **independentzia erdietsi** (3); **kontratua erdietsi** (3); **lehen garaipena erdietsi** (5); **nola erdietsi** (4); **nuen erdietsi** (6); **puntu erdietsi** (4); **puntu erdietsi ditu** (3); **tanto erdietsi** (7); **tanto erdietsi zituen** (5); **xedea erdietsi** (3); **zerbait erdietsi** (3); **zuen erdietsi** (5)

erdietsia zuen (5); **erdietsiko dela** (3); **erdietsiko ditugula** (3); **erdietsiko du** (5); **erdietsiko duzu** (3); **erdietsiko ez** (3); **erdietsiko zuen** (3); **erdietsitako emaitzak** (3); **zuen erdietsia** (3)

---

erdifilosofo *iz* erdizka filosofoa.

Orduz geroztik naizela uste dut **erdifilosofo**. Patziku Perurena

---

erdigaldu ik **erdi**[1] **8**.

---

erdigarden *izond* erdizka gardena.

Airean geratzen zen, laino **erdigarden** bat bezala, Harryri energia xurgatuz, honek lortutakoa desegin ez zedin ahaleginak egiten zituen bitartean. Iñaki Mendiguren

---

erdigizaki *izond* erdizka gizakia dena.

Bere burua aurkituko du munstro, korrikaldian doala, azken behakoan apika, arkupeetako erakusleiho batean; gizaki zezenburu bat ikusiko du, edo zezen **erdigizaki** bat. Iñaki Iñurrieta

---

erdigizon *iz* erdizka gizona.

Hegazkin hartan zihoazen gizon guztiek batera baino gehiago balio nuen nik, ordura arte **erdigizon** izandako honek. Hasier Etxeberria

Nire lagunak zerri bihurtu dituzu, eta asmo gaiztoak dituzu nirekiko ere: zeure ohera eramanik, beldurti eta **erdigizon** bihurtu nahi nauzu. Juan Kruz Igerabide

---

erdigordekako *izond* erdi gordeka gertatzen dena.

Eperra da endemas, neskatxa maitalearen itxura liluragarria sinbolizatu izan duena, bere lumaje apainekin, buruko ttonttor harroarekin, betondo urdinska ñabarrekin, eta zango gorriekin bere izaera lotsatiari eta ibilera **erdigordekakoari** lagunduz, gure amodio irrikaren irudi bihurtuz. Patziku Perurena

---

erdigune **1** *iz* erdiko gunea.

Ez baitaiteke **erdigunerik** izan, espazioa infinitua izanez gero. Xabier Amuriza

Xake taulari begiratzen badiozue, segituan ohartuko zarete ez daukala **erdigunerik**; **erdiguneak** egon beharko lukeen tokian lauki bat dagoela lau laukitxorekin, bi txuri eta bi beltz. Bernardo Atxaga

Gauza jakina da mundua konplexuagoa bihurtu dela, eta lanaren nazioarteko zatiketak, **erdigunea** eta periferia, Iparra eta Hegoa, eta gisa bertsuko kontzeptuen inguruan ñabardura gehiago egitea eskatzen dutela. Iñaki Heras

Praile budista laranjaz jantziek jotzen duten gong erraldoi baten **erdigunea**. Lourdes Oñederra

Europako bideen mapa: egiazko armiarma sarea, baina **erdigunerik** ez duena. Piarres Aintziart

Baldin eta zurezko habe bat, metalezko barra bat edo hezur bat **erdigunean** kargatzen bada, haren azpiko gainazala tenkatu egingo da eta, beraz, tentsioan egongo; goikoa, berriz, konprimitu egingo da. Irene Aldasoro

Muskulu ziliarra uzkurtzen bada, zuntzen tentsioa gutxitu egiten da, eta kristalinoak, erlaxatu, eta forma konbexuagoa hartzen du, hau da, **erdigunean** sabeltzera egiten du

nabarmen. Irene Aldasoro

Behar bada noizbait gertatu zen, tunelaren alde bietako langileek gero eta gehiago zulatu eta gaizki kalkulatu zutelako **erdigunean** elkar ez topatzea ere. Harkaitz Cano

Jainkoa eta ez beste ezer ezin liteke sartu **erdigune** horretan, arimaren zolan. Joan Mari Lekuona

Erdiguneko kaleetako teilatu gorriak, parkeak, eliz dorrea, kanpoaldean egiten ari ziren bi auzo berri, etxe berdin-berdinez osatutako lau lerroko auzoa. Jon Maia

Erdiguneko euskalkiak zituen gogoko, euskaldun guztiendako ulerterrazenak zirelako. Koldo Zuazo

Bazterretako hizkerak baino -bizkaitarra eta zuberotarra- errazago aditzen da **erdigunekoa**. Koldo Zuazo

Uhinak ikusiko genituzke **erdigunetik** biribilean urrutiratzen, ur geldietara harri-koskor bat botatzen denean bezala. Lourdes Oñederra

Haien pausoa bizkorra zen, eta espaloietatik ez ezik **erdigunetik** ere saiatzen ziren, autoen arteko distantziak aprobetxatuz. Pedro Alberdi

Bere aitak botika eder handi bat zuen **erdigunean**. Joxemari Iturralde

Erdigunera joango nintzen eta orduan erabakiko nuen zer egin, bulegora joan, etxerantz abiatu edo beste gin-tonic bat hartu edozein kafetegitan. Joxemari Iturralde

Lau elementuok, beren tokietara itzultzeko, egiten dituzten lerro zuzeneko mugimenduak bitarikoak dira: zirkunferentziaranzkoa, suari eta aireari dagokiona, eta **erdiguneranzkoa**, urak eta lurrak egiten dutena. Xabier Kintana

2 *(-en* atzizkiaren eskuinean)

Lurraren **erdigunea**, antzinako sistema geozentrikoaren arabera, unibertsoaren **erdigune** orokorra zen. Xabier Kintana

Eta, nola Eguzkia sistema planetario berriaren zentroa den, hala, adimenduaren bertze argi hori diagu -eta gizona bera, azken finean- mundu berriaren zentro eta **erdigune**. Joan Mari Irigoien

Leunki zeharkatzen duzu Times Square goizaldeko hiru eta erdietan [...] eta bat-batean bakar-bakarrik zaude munduaren **erdigunean**, zeruko bazter guztietatik neoia isurtzen delarik zure gainera. Oskar Arana

Hark izan behar zuen SSen inperioaren **erdigunea**. Alberto Ladron Arana

Beste ikasleek, Josebak, Susanak, Victoriak eta Teresak, aurrera jarraitzen zuten, hiriaren **erdigunerantz**. Bernardo Atxaga

Biraka ziharduen berebiziko abiaduraz, zurrunbiloaren **erdigunera** makurtuz. Karlos Zabala

Zeren jakin behar duzu, oi Ariadna, egundaino ez dela azaldu labirintoaren **erdigunera** gizaki guztietatik agertu behar zuen bakarra, basakeria geldiarazi zezakeen bakarra. Javi Cillero

Ikusi nituen Amerikako jendetzak; ikusi nuen zilarrezko amaraun bat piramide beltz baten **erdigunean**. Juan Garzia

Hitz joko bat dela pentsatuko duzue, baina, nire iritziz, nobelaren **erdigunea**, zentroa, Central Park da. Bernardo Atxaga

Ez dezazula inondik ere sinets, Memmio, zer guztiek gauzadiaren **erdigunea** deritzonerantz jotzen dutenik eta horri esker munduaren izaerak kanpotiko talkarik gabe dirauenik eta ezerk ezin duenik ez goitik ez behetik inora alde egin, denak erdirantz jotzen duela-eta. Xabier Amuriza

[Bihotza] gorputzaren erdian aurkitzen denez, halaxe deitzen zaio, halaber, gauza baten **erdiguneari**. Xabier Kintana

Euskal Herriaren **erdigunean** dago. Koldo Zuazo

Kartzelaren **erdigunetik** ateratzen diren lau beso dira Herrerako moduluak. Jokin Urain

Pekinek gobernuaren **erdigune** izaten jarraitu zuen, eta Chung-tu-k oporretako egoitza izaten. Iñaki Mendiguren

Gogamenaren ikuspegi modular batek ere -eta horrek ere badu garrantzia- ezabatu egiten du nortasuna, norberaren **erdigunea**, nia. Xabier Olarra

Enparantza da Pasaiako herriko bizitza eta mugimendu guztiaren **erdigunea**. Koldo Izagirre

Preso eta iheslari politikoak «eztabaidaren **erdigunean**» jartzeko eskatu zuen. Berria - Harian

Autodeterminazioa edo lurraldetasunaren gisako erreibindikazioak eztabaida politiko eta sozialaren **erdigunea** dira. Berria - Ekonomia

Bukhara [...] hiri loriosa, Avizenak eta X. mendeko beste jakintsu batzuek ilustratua, zientzia musulmanaren **erdigunetzat** hartzen da. Karlos Zabala

Maddi izan zen, handik aurrera, Antonioren bizitzaren **erdigunea** eta zioa. Iban Zaldua

3 *(-ko* atzizkiaren eskuinean)

Tiro, nazio merkatari ororen etsaia, desagertua zen; lurralde hartako superstizio zaharrek ez zieten trabarik egiten; Egipto munduko **erdigune** bihurtua zen. Iñaki Iñurrieta

Hiru ekintza-gizon, gabardina luze arreak soinean, Parisko **erdigunean**. Alberto Ladron Arana

Zubia zeharkatu zuten, eta Donibaneko **erdigunera** bideratu ziren. Elena Touyarou

Protestak areagotzea erabaki zuten, eta eguerdian 70 bat garabi Bilboko **erdigunera** abiatu ziren manifestazioan. Berria - Harian

Donostiako **erdigune** historiko burgesa eta haren ordain industrial periferikoa, hau da, Pasaiako portu herria. Berria - Kultura

Tiber ibaiaren goi-haraneko **erdigune** garrantzitsua. Askoren artean

Uztaritze ez zen gehiago eskualdeko **erdigune** politikoa izanen eta, Biltzar Nagusia, euskaldunen eskubideen babestokia, iraganeko oroitzapen soila bilakatuko zen, ondoko belaunaldirako ahantzia izanen zena. Elena Touyarou

194 langile behar zituela Udalak (herriak) hiriko **erdigunean** berean kale edo karriken garbitzen. Herria

Ivan Ogareff kanpamentuko **erdigunera** ailegatu zen. Karlos Zabala

Hammanek defentsako **erdigunea** indartzen lagunduko du, eta Schneiderrek Ballacken ondoan jokatu dezake, bien artean Kuranyi eta Schweinsteiger edo Bobic aurrelariei paseak emateko. Berria - Kirola

XII. mende bukaeraz gero, Champagne zen Ekialde eta Mendebalde arteko merkataritza-trukerako **erdigune** nagusia. Askoren artean

Existitzen ez denari existentzia emateko eta beren artean deus ikustekorik ez duten bi aurkarien arteko **erdigunea** aurkitzen saiatzeko. Xabier Kintana

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Plazaren **erdigune** geometrikoa markatzen zuen lauza altxatu eta zuloa agertuko zen, imajinatu zuen, eta hantxe sartuko zuten enborra. Iñaki Iñurrieta

Esfera hauek **erdigune** ezberdinak dauzkate. Xabier Kintana

Arimaren **erdigune** ezkutuan, han dago Jainkoa izatez, errealitatez, funtsez. Joan Mari Lekuona

Bigarren liburuan, bertute morala eta atsegintasuna berriro elkarturik agertu arren, aztertzen den kontzeptua **erdigune** justuarena da. Askoren artean

Gauza guztiek beren atsedena hartzen dute beren **erdigune** naturalera iristen direnean, hala nola harria lurrera, sua eguratsaren gaineko esferara, eta arima Jainkoagana iristean. Joan Mari Lekuona

Liburutegia esfera bat da zeinaren **erdigune** petoa edozein hexagono baita, eta zeinaren zirkunferentzia iristezina baita. Juan Garzia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Metropolitano edo artzapezpiku horiek, bestalde, sistema dioklezianikoan diozesi deitzen ziren probintzi multzo horietako baten administrazio-**erdigune** zen aulkiko apezpikua onartu zuten beren primatu gisa. Iñaki Mendiguren

Mundu sinikoaren kultur **erdiguneko** herriek berezko joera zuten eurak adierazgarri nagusi zituen kultura bat idolatratzeko. Iñaki Mendiguren

Bakeroz jantzitako pertsona arrunt bat estadio **erdigunerantz** doa gitarra akustiko bat lagun bakar hartuta. Harkaitz Cano

Zortzi eta erdietan Bereziortua jaunak txoferrari deitu zion eta handik gutxira txaletetik atera ziren hiri **erdigunean** zegoen kluberantz. Joxemari Iturralde

Neu ere hiri-**erdigunerantz** nindoala aprobetxatuz, hari segitzea erabaki nuen. Joxemari Iturralde

Duela 23 urte eta erdi biltzen dira Bilbo **erdiguneko** plazan ordubetez, seme-alaben argazkiak eskuan eta egoera bertsuan dauden amak alboan. Berria - Euskal Herria

Errepublikanoak kalera atera ziren unionistei Dublin **erdigunetik** igarotzen ez uzteko asmoz. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bagdadeko erdigunean (4); **baten erdigunea** (5); **bere erdigunea** (4); **bilboko erdigunean** (3); **erdigune bat** (5); **erdigune eta** (3); **erdigunea da** (7); **erdigunea eta** (5); **erdigunea izan** (3); **erdigunea izaten** (3); **erdigunean dago** (6); **erdigunean dagoen** (5); **erdigunean eta** (3); **erdigunean kokatzen** (3); **erdigunean zegoen** (3); **erdiguneko kale** (4); **erdigunetik urrun** (4); **eta erdigune** (3); **eta erdigunea** (4); **eztabaidaren erdigunean** (5); **gatazkaren erdigunean** (3); **guztien erdigune** (3); **herriko erdigunean** (4); **hiri erdigunera** (3); **hiriaren erdigunean** (10); **hiriaren erdigunean dagoen** (3); **hiriaren erdigunetik** (5); **hiriburuaren erdigunean** (4); **hiriburuko erdigunean** (6); **hiriko erdigunea** (4); **hiriko erdigunean** (9); **hiriko erdiguneko** (3); **londresko erdigunean** (4); **munduaren erdigunea** (5); **munduko erdigunea** (3); **politikoaren erdigunean** (5); **unibertsoaren erdigunea** (3)

erdigunetu *izond* erdigune bihurtua.

Oteizak eta Chillidak hilarri tradizionalen espazio hertsi, borobil, **erdigunetua** hartu eta haren ordez obra ireki, deszentratu, plano desberdinetara zabaldua egin zutenean, hautsi eta distortsionatu egin zuten betiko espazio hura, Joseba Zulaika

erdihegaka *adlag* erdizka hegaka.

Oraindik ongi lumatu gabeak, bero beroan, nere esku koxkorrekin hartu eta, segituan bota nituen, banan banan, hiru belekumeak **erdihegaka** lurrera. Patziku Perurena

erdihezi, erdihezi, erdihezten da/du *ad* erdizka hezi.

Erdihezitako publiko baten ustiatzaile horiek ez zirela beren biktimak "baldintzatzeko" gai izango, ez behintzat ustiakuntza horren aurka immune bihur zitzakeen punturaino heziketan jarraitzea eragozteko bezain sakon. Iñaki Mendiguren

erdijainko *(orobat **erdi jainko**)* *iz* erdizka jainkoa.

Arraza hori ere lurrak estali zuenean, laugarren arraza bat egin zuen berriro, Oro-Amaren aurpegian, Zeusek, Kronosen semeak: arraza hobea eta zuzenagoa, gizaki heroikoen jainkozko arraza, **erdijainkoak** deituak, garai batean Lur mugagabean bizi izan zen arraza. Iñaki Mendiguren

Judu-errabino baten hil osteko garaipena [...] Dionisos eta Herakles bezalako kondairazko **"erdijainko"** ahaidetuen lehenagoko garaipenen maila bereko balentria pagano bat zen. Iñaki Mendiguren

erdijan ik **erdi[1] 14**.

erdijopu *iz* erdizka jopua.

Laeti termino teknikoa -eta honekin ezagutzen ziren kolono barbaro haiek- mendebaldeko germaniar hitz batetik dator, atzerriko egoiliar **erdijopuak** adierazteko hitz batetik. Iñaki Mendiguren

erdika **1** *iz* erdia.

Hemendik egunean bat; hortik **erdika** bat; bestetik hiru laurden. Iñaki Segurola

Berehalaxe ekarri zioten buztinezko ontzi **erdika** bat, osorik ez baitzeukaten, urez beteta. Askoren artean

2 ***hitz erdika*** *adlag*

Aurrez aurre eta ez **hitz-erdika**. Elizen arteko biblia

Um Hamidak berak adierazia zion, **hitz erdika**, eta berak ez zuen eragozpen bakar bat ere jarri. Patxi Zubizarreta

Hartan, Baionako apezpikuak, **hitz erdika** bazen ere, iradoki zion deserriratzeari akabantza emateko parada zuela. Aingeru Epaltza

3 ***ordu erdika*** ordu erdian behin.

Arrautzatik urteten danean, ordu **erdika** ontzi baten brandya oilasko-odolaz nahastuta emon behar jako edaten. Iñaki Mendiguren

erdikala *adlag ipar* erdizka.

Egia da holako arnotik nahi ginukeela basoaren bete eta hor **erdikala** daukutela eskaintzen, eta oraino **erdikala** baino ozka zonbait gutiago naski. Herria

Segida ezagutua da eta orai, azken urtea lekuko, hiru aldiz urtean Merkatuko galeria betea da eta gaineratekoetan **erdikala** baino gehiago. Herria

Haren bulego-ganbarako leiho bat **erdikala**, ala biak zabalik, zer axola zuen holako xeheteriez Uztaritzeko jakintsunak? Herria

erdikalde ik **erdialde**.

erdikantari *adlag* erdi kantatzen.

Hitza xalagardatuz **erdikantari** sartu dela hemengoen otordu haundira, bromatan bezala, eta bertakoren batek: "Hara, "Olentzero" hemen diagu aurten ere" esaten duela, erdibroman, bertakoei barre eraginez. Patziku Perurena

erdikantatu, erdikanta(tu), erdikantatzen *(orobat **erdi kantatu**)* du *ad* erdizka kantatu.

Jeneralaren paretik pasatzean, bat-batean, bestaldean agure bat ikusi nuen martxa militarraz axolatu gabe han aldamenean bidexka batetik zihoana, astiro, herrenka, kanta debekatu bat **erdikantatuz**. Berria - Kultura

Goiok hamarretako mezara joan behar izan zuen, baina arratsaldeko bostetan jende heldu guztia arrosariora, Olabeko Mikaelak **erdikantaturiko** otoitz haietara joan zen artean, bera etxean geratu zen.Txirritak Munduko Gerra Handiari jarritako bertso-paperak aurkitzeko hona Aita Zabalak ibilitako bidea: Getarian entzun zuen lehen aldiz bertsoen berri; baserri bateko etxekoandreak bi bertso eta **erdi kantatu** zizkion. Joseba Sarrionandia

Lorategian hasitako zerbait erritmikoa aditu zuenean, erdi hitz egina **erdi kantatua**, senarra terrazan gora eta behera zebilen bitartean, makakorroa eta kantaren arteko zerbait, berriro lasaitu zen. Anton Garikano

Zutik egongo da, barandaren kontra, begi zoro eta triste horiekin gorpezur jantzia ematen duela, kantua edo lantua **erdikantatzen**: [...]. Joseba Sarrionandia

erdikara *adlag* erdia edo.

Bi urtez, **erdikara** ur ekarri dut; hori, nere aldean dutan xilo huni medio, hemendik ixurtzen baitzait ura bide guzian. Herria

erdikari *iz* angelu bat bi eremu berdinetan zatitzen duen zuzekia.

Angelu bat bi zati berdinetan erdibitzeak **erdikariak** eraikitzea dakar; zuzenki batekin gauza bera eginez gero, horra erdibitzailea. Jon Muñoz

Horretarakoxe asmatua zen **erdikaria**, eta erraza zen eraikitzen, gainera. Jon Muñoz

· Handik iparrera jotzen zuten, motor hots ikaragarria lagun, beherago oraindik, eta, zumardiaren bertikalarekiko **erdikaria** hartu bezain laster, metrailetak isildu gabe eta arbola puntak ukitzeraino hurbiltzen zitzaizkien, sua muturrean. Ramon Saizarbitoria

---

erdikatu, erdika(tu), erdikatzen **1** du *ad* erdira ekarri.

Areago: kopurua **erdikatu** ondoren, horren erdiaren erdiak ere halako jakin-minaz eta grinaz irakurriko balitu euskal eleberriak, ez litzateke hain gaizki egongo arazo hau, eta hizkuntzaren maratila aski seguru izango genuke. Pello Salaburu

2 ahoskatu, ebaki.

Ez dute, hala ere, unibertsitatearekin kontatzen bere planetan (eta hitz hau "planetan" bezala **erdikatzen** da, ez "planetan" bezala). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

erdiketa *iz* baloiaz mintzatzuz, erdiratzea.

Karpini iritsi zitzaion baloia eta haren **erdiketa** bikaina buruz errematu zuen Kovacevicek. Berria - Kirola

---

erdikide *izond/iz* parte hartzen duena.

Hauxe agian: ebanjelioaren "harribitxi ezkutua" aurkitu duela eta besteak ere, gizartean eragin handiena dutenak batik bat, **erdikide** izatea nahi duela. Askoren artean

---

erdikoi *izond ipar* erdira jotzen duena, eskuarki politikan.

Elgarrekin, eta de Chevigné zerrenda-buru, dute demokrazia girixtino **erdikoiaren** saila segurtatuko. Herria

Erdikoiago bat bazuten alta, Rafsandjani, erreformatzaile eztiagoa baina hunen hautua ere ez dute egin. Herria

Ahmed Qoreihirugarren gizona: hau lehen ministro kargutan dena, gizon **erdikoia** eta hil den buruzagiaren gider andana bat zuena. Herria

Ariel Sharon **erdikoiaren** burukolpeak ditu hortaratuak, pasatuak pasatu, eta huna Shimon Peres sozialista Sharon horren Kadima alderdiaren alde jarria dela, erranez Peresi etzaiola inporta zein partidu den hor ari baina bai bakearen aldeko aterabide bat duela hor ikusten eta hori dela konda. Herria

---

erdikor *izond* erdira jotzen duena.

Puntu **erdikorra** jo dugu: zer den ongi eta gaizki, norberarentzat bezala gizartearentzat. Joxe Azurmendi

---

erdikusi, erdikus, erdikusten du *ad* erdizka ikusi.

Gau batez, pare bat aldiz irten zen, etxeko ate ostean zerbait zirrin-zarran antzeman ondoren, eta itzal bat **erdikusi** zuen. Koldo Biguri

Kontraleihoek **erdikusten** uzten zuten siluetari antzemateko. Patxi Zubizarreta

Horiek estali zaizkio, hasieran adimena horiek asimilatzeko gai ez delako, eta horregatik haien distira batzuk **erdikusten** utzi zaizkio, goi mailako gizakiak ezagut ditzan. Xabier Kintana

Pertsonaia arraro bat topatuko duzu, bere elurrorein adar handiak **erdikusiko** baitituzu iluntasunean. Joseba Sarrionandia

Izan ere, ene helburua hauxe da, egia horiek, **erdikusiak** izan ondoren, estaltzea, Jainkoaren nahiaren aurka gerta ez daitezen. Xabier Kintana

Aurpegi beldurgarria **erdikustera** irits gaitezkeelako asmaketa horretan. Iñaki Iñurrieta

---

erdilan *iz* lanaren erdia.

Kadeteetan ondo aritu ziren lau pilotariak **erdilanak** arte. Berria - Kirola

Erdilanak arte ez gara benetan sartu norgehiagokan Berria - Kirola

---

erdilari **1** *iz* taldekako kiroletan, erdialdean jokatzen duena.

Erdilarien lerroa betetzen zenean, falta egingo zuen gupidagabe; baloia azkar asko emango zion hobekien ikusten zuen kideari. Jon Alonso

Zazpiak esperientziadunak dira: atezain bat, Christophe Bernet; defentsari bat, Nicolas Delmas; bi **erdilari** eta hiru aurrelari. Herria

Ea U.S.C.n **erdilari** aritzen zen hura ni nintzen, eta baietz esan nionean, nire adina kalkulatu zuen. Xabier Olarra

Gustatu zitzaidan partida eta Hiri nagusiko gazteek zuten irabazi, Artestar mele **erdilaria** pasatu baitzen azken mementoan bi aurrelarien artean entsegua landatuz marra xuriaren gibelean. Piarres Aintziart

Realeko **erdilaria** ez dago pozik. Berria - Kirola

Maradona eta Brian Roy (Ajaxeko ezker hegaleko **erdilaria**) miresten zituen Davidsek garai hartan. Berria - Kirola

Valverderen **erdilariek**, pase zehatzetan oinarrituriko joko bizkoarrekin aise zulatu zuten Osasunaren atzeko lerroa. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Blagoi Georgiev **erdilari** bulgariarrak utzita jokatuko du Alavesen, denboraldia amaitu arte. Berria - Kirola

Han ikus zitezkeen, besteak beste, Lizardi aurrelari paregabea, Eunton gomazko atezaina, Carpiano **erdilari** iaioa. Aritz Gorrotxategi

Erdilari aurreratu gisa hasi zinen, euskarrian jokatzen duzu egun, eta zentral gisa ere jokatu duzu. Berria - Kirola

Robben, partidako jokalari onenetakoa ordu arte, kendu zuen, eta Bosvelt **erdilari** beteranoa zeilaratu. Berria - Kirola

Jonathan Woodgate Newcastleko **erdilari** ingelesak ez du Portugalgo Eurokopa jokatuko. Berria - Kirola

Erdilari erasokorrak eta aurrelariak dira ia guztiak. Berria - Kirola

Erdilari gogorra da eta euskarri postuan jokatzen du. Berria - Kirola

Lucho Vargas partidaren erritmoa haustera ateratako **erdilari** zaildu bat zen, zelai lohitsu baten erdian. Jon Alonso

Atzean bortitz, erasoko **erdilari** bizkorrak eta aurrelari bakarrarekin. Berria - Kirola

Europako erasoko **erdilari** onenetakoa. Berria - Kirola

Ez zaio arrazoirik falta gorritxoen harrobiko **erdilariari**. Berria - Kirola

Bertik, 1980ko hamarkadako Inter onenean aritutako eskuin hegaleko **erdilari** finak, 180 minutu besterik ez zituen jokatu. Berria - Kirola

Hire aita aurrelaria zuan, ni hegala, besteak atzelari eta eskuineko **erdilari**, ez nauk gogoratzen. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Aurreko denboldian eskuin **erdilari** postuan aritu zen, baina Ortizen fitxaketak hamaikakotik kanpo utziko du igandean. Berria - Kirola

Sota eta Moreno (erdi-puntak), eta Seguro eta David Lopez (ezker **erdilariak**). Berria - Kirola

Postua: Eskuin hegalekoa edo eskuin **erdilaria**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

al erdilariak (3); **al erdilariak** (3); **antiguako erdilariak** (3); **athleticeko erdilaria** (12); **athleticeko erdilariak** (4); **bi erdilari** (4); **da erdilari** (5); **de lucas erdilariak** (3); **erasoko erdilari** (6); **erasorako erdilari** (3); **erdilari aurreratu** (6); **erdilari aurreratu gisa** (5); **erdilari bat** (6); **erdilari bat eta** (3); **erdilari brasildarra** (3); **erdilari donostiarrak** (4); **erdilari eta** (8); **erdilari eta atzelarien** (3); **erdilari frantziarrak** (4); **erdilari gazteak** (8); **erdilari langilea** (3); **erdilari nafarra** (6); **erdilari nafarrak** (9); **erdilari uruguaitarra** (4); **erdilaria da** (7); **erdilaria eta** (4); **erdilaria fitxatu** (5); **erdilaria izan** (3); **erdilariak atzo** (4); **erdilariak eta** (3); **erdilariek ere** (3); **esan zuen erdilari** (3); **eskuin erdilari** (3); **eskuin erdilaria** (3); **eskuin hegaleko erdilari** (4); **eskuin hegaleko erdilariak** (3); **eta erdilari** (3); **eta erdilariek** (4); **hegaleko erdilari** (4); **hegaleko erdilaria** (3); **hegaleko erdilariak** (3); **lucas erdilariak** (3); **osasunako erdilari** (5); **osasunako erdilaria** (11); **osasunako erdilariak** (3); **osasunako erdilariek** (3); **patxi puñ puñ realeko erdilari** (3); **realeko erdilaria** (8); **taldeko erdilari** (3); **uharteko erdilariak** (3); **urteko erdilariak** (3); **x athleticeko erdilaria** (4); **x osasunako erdilaria** (9); **x realeko erdilaria** (3); **zuen erdilari** (7)

---

erdilasterka *adlag* erdizka lasterka.

Behia hala ikusi bezain pronto, amona Genobeba **erdilasterka** han etorri zen hankutsik, soroa behera, armonian: [...]. Patziku Perurena

Eskolatik etxarakoan **erdilasterka** joan, harri xabala eta goroldioa baxtertu, eta hantxe egoten zen hur altxorra, guri poza eman zain. Patziku Perurena

Mutikotan, auzoko artzai baten atzetik joaten nitzen mendira askotan, haren alkantzoari ezin segiz, **erdilasterka**. Patziku Perurena

Hura aurretik eta ni atzetik, haren alkantzoari nere hanka ttikiekin ezin segin **erdilasterka**. Patziku Perurena

---

erdilizun ik **erdi[1] 14a**.

---

erdilo ik **erdi[1] 15**.

---

erdilotan ik **erdi[1] 16**.

---

erdilotsatu ik **erdi[1] 17**.

---

erdilun ik **erdi[1] 10**.

---

erdimin *iz pl* erditzean izaten diren minak.

-Hago isilik gizona... **erdiminak** ditiat. Itxaro Borda

Bere emazteari **erdiminak** etorri eta maiorazkoa jaiotzear zela ikustean, lasterka atera zen Institutuko korridorera, oihukatuz: [...]. Fernando Morillo

Orduan etorriko zaie hondamendia gainera, ustekabean, haurdun dagoenari **erdiminak** bezala. Elizen arteko biblia

Bere aitaginarreba eta senarra hilak zirela aditu zuenean, kuzkurtu eta haurra izan zuen, **erdiminak** etorri baitzitzaizkion. Elizen arteko biblia

Erditzeko garaian, hainbat egun eman zituen **erdimin** izugarrietan, bizitzaren eta heriotzaren artean zintzilik. Askoren artean

Haietako baten andreak hiru egun zeramatzan **erdiminetan**, eta hiltzear zegoen erdi ezinik. Askoren artean

Beldur-ikarak joko ditu, eta hain estua eta larria izango da egoera, ezen **erdiminetan** dagoen emakumea bezala bihurrituko baitira. Elizen arteko biblia

Arezzo aldeko andre bat **erdiminez** zegoen zazpi egunez. Askoren artean

2 irud/hed

Globalizazioaren **erdiminak**. Txema Ramirez de la Piscina

Arkitekturaren eremuan helenismoaren berpizkundeak Mendebaldeko jeinuan eragin zuen antzutasuna industri iraultzaren **erdiminetatik** inolako uztarik ateratzen izandako porrotak erakusten zuen. Ikus bestela zer zioen, ia erdara hutsezko egunkari baxko baten **erdiminetan**, bertako zuzendari izan behar zuen andereak: [...]. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emakumea erdiminetan bezala (9); **erdiminetan bezala** (10); **erdiminetan dagoen** (4)

---

erdimoderno *izond* erdizka modernoa dena.

Niretzat, balioen konflikto nahasi batean murgilduak bizi gara: gizarte erditradizional, **erdimoderno**, kontserbakoi, anarko, erlijioso, pagano lardaska batean, ez mundu bateko ez besteko, trantsizio krisietan ohi den eran. Joxe Azurmendi

---

erdimoduko *izond* tartekoa, ertaina.

Espaniar **erdimoduko** batentzat 1890ean, Iparramerika ez zen zerrikiaren industriatik aberastutako merkatari saldoa baizik. Patziku Perurena

---

erdimoxkor *izond adkor* erdizka mozkorra.

Alkate asko, orain gutxi arte, sekretarioaren bastoi inozentea izan ohi zen; egungo prentsa eta protagonismo xitalik gabe, jendaje xalo edo xital, baina inoxente batzuez inguratua: herri guziak adarra jotzen zion aguazil gixatxarra, eta beste antzeko hirulau alper tripazain edo **erdimoxkor** grazioso. Patziku Perurena

---

erdimuin *iz* muinaren muina.

Erakutsiguzu geure egunen kontua eramaten, jakinduriaren **erdimuinaz** jabe gaitezen. Elizen arteko biblia

erdimundutar *izond* erdizka mundutarra.

Sistema ekumeniko batek Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren inguruan gauzatu ziren bi sistema **erdimundutar** haietako bakoitzarekin bide zeuzkan elementu komunetara mugatzen badu etorkizuneko mundu-ordenari buruzko gogoeta. Iñaki Mendiguren

erdinekazari *izond* erdizka nekazaria.

Azken hamarkadan bertan ikusi dugu zein erraz alda daitekeen gurea, nekazariak izatetik **erdinekazari** izatera pasatu baikara. Berria - Euskal Herria

erdiño *iz adkor* erditxoa.

Mende **erdiño** baten buruan. Herria

Mende **erdiño** bat iragan baita beraz geroztik, orduan apeztuetarik hamar badira mundu huntarik joanak. Herria

Duela mende **erdiño** bat zendua. Herria

Duela mende **erdiño** bat, ainitz etxetarat ura etzen oraino sartua, iturritik ekarri behar! Boketa ere iturrian egin behar. Herria

Duela mende **erdiño** bat nunbait han, beste jauzi bat goiti egin du jendetze horrek. Herria

Hendaiako Tribord horrek hartzen du hektara **erdiño** baten eremua, eremu horren laurdentsua saltegi kondu. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **duela mende erdiño** (13); **mende erdiño bat** (11); **mende erdiño baten** (3)

erdinobio *iz* nobioa edo dena.

Horregatik dituzte gazteek hainbeste nobio, **erdinobio** eta horren gisakoak. Berria - Kultura

erdioriotar *izond* erdizka oriotarra.

Berrogei urte pasatu dira *Quousque tandem* argitaratu zenetik, eta beste **erdioriotar** batek, Jon Sarasuak, bizi dugun hau golde-aro dugula gogorazi berri digu, herri-minez urratutako aldarri ezinago ederrean. Joxerra Garzia

erdipagano *izond* erdizka paganoa.

Munduko sineste pagano eta **erdipagano** ugaritan, bildotsaren sinbologia hori, nola edo hala jainkotasunari lotua zegoelako. Patziku Perurena

erdiplajio *iz* erdizka plajioa.

Orain bizpahiru hilabete, Erdi Aroko jaunen Ederra deitura nobleko maisu batek, euskarari buruzko letania horietako bat eskatu zidan, eta honako **erdiplajio** hauxe atera niri. Patziku Perurena

erdipunta *iz* futbolean, eraso tokietan jokatu arren atzelari lana ere egiten duen jokalaria.

Eneko Romo bigarren taldeko jokalariak ere jokatuko du bihar, **erdipunta** gisa. Berria - Kirola

erdipuntu *iz* erdiko puntua.

Zirkulua puntu guztiak beste puntu batetik (**erdipuntua**) distantzia berberan dituen lerro okerra dela dioen ohiko argiketak "okerra" determinazioa halabeharrez erabiltzeko hutsegitea du Ibon Uribarri

erdipurdi **1** *adlag* erdizka, ez ondo ez gaizki.

Kantatu edo errimatu daiteke oso ondo, ondo, ez hain ondo, **erdipurdi**, gaizki, oso gaizki..., baina neurriak ez du inongo eskalarik onartzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gero etxerakoan autoa hartzen duenean errepasatu egiten du zer egin duen ongi, eta zer egin duen **erdipurdi** eta zer egin duen gaizki. Berria - Kultura

Politikan bai, baina hemen ez dago erdibiderik: **erdipurdi** plagiatzea gaizki plagiatzea da. Joxerra Garzia

Eskolak ondo, **erdipurdi** edo gaizki ematen dituen, ez dio axola handirik. Joxerra Garzia

Etxeko argiak piztuta daude, eta leihoek aske uzten dituzten errainuek **erdipurdi** argitzen dute ilunpea. Pako Aristi

Lizarraga jeneralak inposatutako ohiturari jarraituz, euskaraz ongi zekitenek eta **erdipurdi** baizik ez zekitenek bat eginda, kantatzeari ekin zioten ozenki Lizarrako bazterrak oro inarrosiz: [...]. bai, bera izan zen Commendatoreari nire izena aipatu ziona: zertxobait entzuna zuen, **erdipurdi** samar ote nenbilen Meatzeetan, uste zuen egoki izan nintekeela ikerketa-lan hartarako, eta, gainera, zergatik ez esan, kokoteraino zegoen bakarrik egoteaz. Txillardegi

Luiz Alberto, oraingoz, bere mailan aritu da, **erdipurdi**, alegia. Berria - Kirola

2 (izen gisa)

Aurrena barkatzen dudana jende inozentea izaten da: publikoa, biktima; hurrena artista: betiko **erdipurdi** hori; eta azkenekotz artista gidatu nahi izaten duen filisteoa. Patziku Perurena

erdipurdika *adlag* erdipurdi.

Horiek ere **erdipurdika** dabiltza urte guztian, batzuetan ongi eta beste batzuetan gaizki. Berria - Kirola

Gizona eseri orduko, hari irribarre egiten saiatu zen andrea, **erdipurdika** baino ez, ordea, eta eskuineko sorbalda gain-gainean pausatu zion begirada. Mirentxu Larrañaga

Gogoz kontra, lagunaren ehorzketari eman nion lekurik handiena, Patxik kolega batengandik lortu ahal izan zuen **erdipurdikako** argazkia [...] hiru zutaberen luzeran paratuta. Aingeru Epaltza

Barka, otoi, batzuk euskaraz **erdipurdika** idazten badugu! Herria

erdipurdikeria *iz* erdipurdiko egintza edo egoera.

Erdipurdikeria nagusitu dela aurtengo buruz buruko txapelketan. Berria - Kirola

Eduardok arrazoi guzia zuen, barka, arrazoi guzia izanen du noizbait, gure **erdipurdikeriak** betikotua daukan "beranduegi" batean. Patziku Perurena

Gure herritxoan oso geldiro zihoan denbora, arbelaren koloreko **erdipurdikeria** motel batean, eta ustekabean harrapatu zituen denak meategiaren ixteak. Xabier Mendiguren Elizegi

Badirudi egungo errealitate gordinari proiektu hipotetiko birtualekin egin nahi zaiela aurre, gabeziaren eta **erdipurdikeriaren** eredua (azken 20 urtetako eredua) ez dela, behingoz, atzean utzi nahi. Berria - Kultura

Agian faktore militarra, hainbeste aldiz heroismoaren habia den erakunde militarra falta dutelako, zeren, kondenatua zibil arrunta izatetik pasatzen ez zenean ere, bularrean jaso zituen balek **erdipurdikeriatik** askatu baitzuten, balak biatiko eta ibiltzeko baimena izan zitzaizkion, eta horri esker azkenean sarrera edukiko du heroien paradisuan. Jon Alonso

---

erdipurdiko *izlag* erdizkakoari, ez ondo ez gaizki eginari dagokiona.

Zela-halako ikerlaria baizik ez haiz izan beti, **erdipurdiko** zientzialaria. Hasier Etxeberria

Leitzako atzelariak azken partidetan emaniko **erdipurdiko** errendimendua nabari hobetu zuen. Berria - Kirola

Nire **erdipurdiko** ingelesarekin ez naiz, ba, pertsona egokiena mintzamen eredua izateko inorentzat. Jon Arretxe

Erdipurdiko negu baten ondoren, udaberri eder bat etorri zaigu orain. Josu Zabaleta

Pío Barojaren bizitza pixka bat jarraitu duena berehala konturatzen da, zernahi esan edo zernahi egiten duela ere, sekula ez duela konformidadea hartzen **erdipurdiko** ordezkoekin. Josu Zabaleta

Guztiei galdetzen zien -sinple nahiz jakintsu, santutasun handiko nahiz **erdipurdiko** - nola irits zitekeen egiaren bidea ezagutzera eta bere perfekzio-asmoan gero eta gorago igotzera. Askoren artean

Telenobelak ikusten, telebistako lehiaketei deika, seme-alabei mukiak eta beste garbitzen, eta etxera mantenua dakarren **erdipurdiko** adulteriogileari bizitza izorratzen. Karlos Zabala

Joan dituk beroak, epelak eta **erdipurdikoak**. Urtzi Urrutikoetxea

Ez al dugu antzeko zerbait egiten plaza batean gai bati erantzun, erantzuna hobetu zitekeela pentsatu, eta autoan etxerakoan bertso **erdipurdiko** hura hobetzen-hobetzen gatozenean? Andoni Egaña

Esana dut akademiako irakasleetan ere, beste edonon bezala, bazirela onak, **erdipurdikoak** eta txarrak. Joxerra Garzia

Oraintxe herri txiki eta **erdipurdikoetan** bakarrik gailentzen zaio ardoa zerbezari. Pako Aristi

Gauzekin gure zentzumen argal, **erdipurdiko**, gaixoen bidez baizik ez dugu harremana. Josu Zabaleta

Nik uste dut badirela nolabaiteko irizpideak, finkatzeko liburu bat ona, **erdipurdikoa** edo txarra den. Berria - Kultura

Orduan konturatuko zinen nobelaren laburpena ez dagoela gaizki, baina **erdipurdikoa** dela; batxilergoko edozein ikaslek egingo zuen. Jon Alonso

Kirten, baldar, **erdipurdikoa** naizela, ezertarako gauza eza. Jesus Mari Mendizabal

Ez litzateke noski garaiko gizonik handiena zehatz-mehatz deskribatu behar, edo iraganeko ospetsuenen ezaugarri nagusia seinalatu, baizik eta ardura beraz kontatu gizonen bizialdi berdinik gabeak; jainkozkoak, **erdipurdikoak** zein kriminalak izan gizonok. Juan Garzia

Jokalari langilea, baina teknikoki **erdipurdikoa**. Berria - Kirola

· Egia txepel xamarrak dira, **erdipurdikotik** askoz gorago iristen ez direnak, eta inoren izanik edo izan-nahirik behar den tamainan betetzen eta janzten ez dutenak. Iñaki Segurola

Eta nire izaerarekin hobeto egokitzen da, zirt edo zart, **erdipurdikorik** ez. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta erdipurdiko** (5)

---

erdipurdikokeria *iz* erdipurdiko egintza edo egoera.

Horrek ortzadar zimela baizik ez gintuen bilakatuko laugarren molde bat ez bagenu geure artean, erran nahi baita, taldea gainerako kideen **erdipurdikokeriatik** eta ergelkeriatik begiratuko zuen norbait. Aingeru Epaltza

Prostituzioak gaixotasunera zaramatza, endekapenera; ezkontzak, berriz, arrunkeriara, **erdipurdikokeriara**. Josu Zabaleta

---

erdipurkeria ik **erdipurdikeria**.

---

erdiragarri *izond* **1** erabat hunkitzen duena. ik **urragarri**.

Armeniaren eta Sobiet Batasunaren arteko gerran kronikari ibili zen, eta orrialde **erdiragarriak** utzi ditu idatzirik. Edorta Jimenez

Odol hotzean eleberrian, egiazko gertakari lazgarri batzuk hartu eta haien kronika **erdiragarri** bat egin zuen, kazetaritzaren baliabide eta hizkerarekin, erritmo sorgingarri batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Burumakur zegoenak burua behingoz zutitzen zuela, eta buruarekin baterat besoa, oihu **erdiragarri** batean erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Baina oihu ikaragarri, zoli, **erdiragarri**, emakume baten oihu bat, zabaldu zen gauean. Josu Zabaleta

Negarrez doaz Luhit-eko aldapan gora; garrasi **erdiragarriak** darizkiela, Horonaimgo bidean. Elizen arteko biblia

Baina ahoan zerbait edukiagatik, marru **erdiragarriak** botaz jarraitzen zuen ume demonioak. Harkaitz Cano

Denak bata-bertzearen ondotik joaiten ikustean, halako solasaldi **erdiragarria** bat-batean moztuko delako damutzen dira. Eneko Bidegain

Besoetan hara eta hona kulunkatzen hasi zen, baina gero eta negar handiagoak eta **erdiragarriagoak** egiten zituen haurrak. Irene Aldasoro

Kartzelara iritsi arteko egunak, atxiloketa eta polizia-etxeko bizipenen testigantzetara ez naiz ohituko inoiz, beti dira **erdiragarri**. Jokin Urain

2 ***bihotz-erdiragarri*** *izond* bihotza erabat hunkitzen duena.

Gibelatu nintzen, pentsa dezakezun bezala, eta niretzat hura aski gertakari **bihotz-erdiragarria** zen dagoeneko. Jon Muñoz

Haren oroitzapen **bihotz erdiragarria** paseatu zuen Guyanako gau argitsuetan. Karlos Zabala

Eta aitak deus ere ezin egin, urrun baitzegoen, Jainkoak daki non... Zer memento lazgarriak, **bihotz erdiragarriak**! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kontua da nik ere idatzi nituela maitasunezko olerki batzuk, dela barneko su irudimenezko edo egiazko baten berotasunak eraginda, dela elearen ederraren bilaketa **bihotz-erdiragarrian**. Xabier Mendiguren Elizegi

Geltokiko trenen txistukadak, balkoiko ateak ongi hetsita ere, gero eta zorrotzago eta **bihotz-erdiragarriago** iristen zitzaizkidan. Txillardegi

Ohore handia da guretzat, baina **bihotz-erdiragarria** ere bada holako albiste izugarriak eman beharra. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bihotz erdiragarria** (4); **bihotz erdiragarriak** (3); **oihu erdiragarri** (3)

erdiraketa **1** *iz* futbolean, baloia zelaiko albo batetik erdialdera bidaltzea talde aurkariaren ate inguruan.

Osasunaren ezaugarrietako bat hegaletatik areara **erdiraketak** egitea da. Berria - Kirola

Vieirak baloia eskatu, ezkerrera zabaldu, Colek **erdiraketa** egin eta Piresek buruz, ederki, banakoa lortu. Berria - Kirola

Milosevicek Corralesen **erdiraketa** burukada batekin Aranzubiaren sareetan iltzatu baitzuen. Berria - Kirola

Moralesek eskuin hegaletik egin **erdiraketa** ederki errematatu zuen Webok, baina De la Fuente atezainak erantzun bikaina eman zion. Berria - Kirola

Behin baino gehiagotan bi hegaletatik eginiko **erdiraketak** erremate gabe geratu direla ikusi da. Berria - Kirola

Eraso guztiek hasiera eta akabera zuten: Poborskyren **erdiraketa** eskuinetik eta letoniarren urruntzea. Berria - Kirola

Kollerrek gutxigatik ez zuen buruz errematatu Nedvedek eginiko **erdiraketa**. Berria - Kirola

Defentsa lan ona egiten ari zen Frantzia, eta **erdiraketen** bidez baino ez ziren iristen greziarrak. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Conceiçaok eskuin aldetik egindako barnekaldiren bat, eta Niemi suomitarrak egindako **erdiraketa** gaiztoak ziren arrisku bide bakarrak. Berria - Kirola

Kosta egiten zaio zelai erdiko marra gainditzea eta **erdiraketa** onak egitea. Berria - Kirola

Rekartek **erdiraketa** bikaina egin zuen, baina txiletarraren burukada indartsua ozta-ozta joan zen kanpora. Berria - Kirola

Postigak bikain erremat zuen buruz Simaok ezkerretik eginiko **erdiraketa** neurtua. Berria - Kirola

Alavesek azkar atera zuen baloia eta Coira eskuin hegaletik egindako **erdiraketa** zehatza ate barrura bidali zuen Palermok buruz. Berria - Kirola

Hakan Yakinek **erdiraketa** arriskutsu bat baino gehiago bota zituen defentsa ingelesen artera. Berria - Kirola

2-0ekin partida eskura zuenean, berriz ere hegaletik egin zizkioten goleko **erdiraketak**. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauzak hobeto jarri ziren hiru minutu geroago, Urzaizek buruz Tikoren falta **erdiraketa** sareetara errematatu ondoren. Berria - Kirola

Osasunan gol **erdiraketa** gehien egiten duen jokalaria bilakatu da. Berria - Kirola

Espainiako Ligan gol **erdiraketa** gehien eman zituen jokalaria izan zen. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako erdiraketa (5); **egindako erdiraketa bat** (3); **eginiko erdiraketa** (5); **erdiraketa bat** (12); **erdiraketa bikaina** (3); **erdiraketa ederra** (3); **erdiraketa egin** (4); **erdiraketa on** (3); **erdiraketa ona egin** (3); **eta erdiraketa** (5); **zuen erdiraketa** (3)

---

erdiratu, erdira, erdiratzen **1** du *ad* futbolean, baloia zelaiko albo batetik erdialdera bidali aurkariaren ate inguruan.

Pasea ematen eta **erdiratzen** onenetakoa zen. Berria - Kirola

Hurrengo jokaldian Henryk **erdiratu** egin zuen Trezeguetek buruz gola egiteko, baina Kapsisek kendu zion baloia. Berria - Kirola

Bigarren gola lehenaren kopia zehatza izan zen, ezkerretik **erdiratu**, Raul Bravoren hutsa, eta oraingoan Ezkerrok buruz sareetara. Berria - Kirola

Artetak bikain **erdiratu**, Kovacevicek buruz ukitu, eta Xabi Prietok jaurtiketa bortitz batekin bidali zuen baloia sareetara. Berria - Kirola

Valcarceri **erdiratzen** saiatu zen, eta baloia, efektu bitxia hartu ostean, Albertoren ate barrura joan zen. Berria - Kirola

Erdiratzea ere lortu zuen behin baino gehiagotan, baina errematatzailerik ez zuen aurkitzen. Berria - Kirola

Manuel Pablok behin baino gehiagotan lortu zuen area ingurura iristea, baina **erdiratzeko** arazoak zituen. Berria - Kirola

Erdiratzea ere lortu zuen behin baino gehiagotan, baina errematatzailerik ez zuen aurkitzen. Berria - Kirola

· Jokaldi horietako batean Morientesek baloia galtzea besterik ez zuen behar izan Portok, kontraerasoan Alenitxevek baloia **erdiratu** eta Decok gola sartzeko, bere ekarpena egiteko. Berria - Kirola

Coirak baloi bat lapurtu, Edu Alonsori maisuki bidali, hark baloia **erdiratu**, Ivan Alonsok buruz utzi eta Vuckok baloia sareetara bidali zuen. Berria - Kirola

Lau minutu geroago, luzapenean, Pablo Garciak falta bat **erdiratu** zuen, eta andaluziarrek Aloisi eta Puñalen lehendabiziko erremateak urrundu bazituzten ere, Aloisik hirugarrengoan Betiseko atzelari guztiak saihestu eta baloia sarera bidali zuen. Berria - Kirola

Bost minutu bete ez zirenean Boumak lehen gola egin zuen, Robbenek **erdiratutako** falta batean atzelari txekiarrek eginiko huts nabaria baliatuta. Berria - Kirola

2 erdibitu, erdi bi egin.

Arraunei ekin zieten, halatan non eskuetako larrua **erdiratu** baitzitzaion, eta zauri bizi haren soleitzeko bere atorra urratuz lortu oihal xaflaz estali baitzituen. Elena Touyarou

Gainera, oraingo sistema **erdiratuak** ez ditu saihetsi nekez justifika daitezkeen bikoizketak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Familia baten bizitza **erdiraturik**. Berria - Euskal Herria

3 irud/hed

Non zen arrazoimena zure bizitzako maiteak irain egin berri dizunean salaketa ezin izugarriagoekin, zure "ni" zorigaiztoko hori **erdiratuz** beraren erdeinuaren aizkorakadez? Oskar Arana

Antzokia luke, hara, malkoz itoko eta solas lazgarriz **erdiratuko** guztien belarria. Juan Garzia

Lokartzear zegoela, oinaze sarkor batek **erdiratu** zion bularraldea eta arnasa sakon hartzeko beharrean gertatu zen. Patxi Zubizarreta

Ez zion bihotza **erdiratzen** haien etorrerak, ez eta nahigabetzen ere haien joanak. Mirentxu Larrañaga

Oinaze lazgarriak **erdiratzen** dit bihotza. Mirentxu Larrañaga

Urrats geldian zihoan, bihotza **erdiratua** eta begitartea ilun. Patxi Zubizarreta

Hariaren beste puntan negar-zotin bat entzun nuen, bihotza **erdiratu** zidana. Daniel Landart

Liburuzaina zenez gero, bihotza **erdiratu** zion Galoisen gogoetak. Jon Muñoz

Suzko setio izugarri hark iraun zuen bitartean, **erdiratu** izan ninduen mina gogoratu besterik ez nuen ulertzeko ezen nire birikak betetzen zituen arnasaldi bakoitza jainko apetatsu haien opari bat zela. Oskar Arana

Ez izatera debeku nagoen espetxeko sekretuez mintzatzea, banikek kontakizun bat zeinaren hitzik arinenak hire arima bailuke **erdiratuko**. Juan Garzia

Deabru gaixoa, arima **erdiratzeko** moduan gaixoturik, ihesi zebilen, santuaren etxea zikinduz. Josu Zabaleta

Nirekin ninderaman, nirekin joan nahi zukeen arima, **erdiraturik**, odoldurik, eta ez nuen aurkitzen non egotzi. Imanol Unzurrunzaga

4 erdira mugitu.

Haien paretak, zutabeak eta kolomak, behekoen gainean **erdiratuta** jarriko dira perpendikularrean, sendotasunez erantzun dezaten; zeren eta pareten edo zutabeen pisuak hutsa hartzen badu azpian, ezin izango baitu irauteko moduko sendotasunik izan. Santiago Iruretagoiena

5 erdira ekarri.

Eta hauek erabaki dute beraz balia-prezioaren **erdiratzea**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baloia erdiratu (4); **bihotza erdiratu** (11); **bihotza erdiratu egin** (4); **bihotza erdiraturik** (6); **erdiratu egin** (6); **erdiratu egin zitzaion** (3); **erdiratu eta** (12); **erdiratu zuen** (4); **erdiratutako falta** (3); **eta erdiratzen** (4)

---

erdiratzaile *iz* futbolean, erdiratzen duena.

Faltan botatzen duzu De Pedro bezalako **erdiratzaile** petoren bat? Berria - Kirola

---

erdiratze *iz* erdibitzea, erdi bi egitea.

«Kondenatu egin naute eta horrek behartzen nau Bordeleko Alkatetza uztera; benetako bihotz **erdiratzea** da niretzat», adierazi zuen Juppek, Girondako hiri nagusiaren udaletxean egin zuen mintzaldi laburrean. Berria - Mundua

---

erdireki ik **erdi[1] 10a**.

---

erdisorgin ik **erdi[1] 19**.

---

erdisoto *iz* eraikuntza batean, erdizka lurraren mailatik behera dagoen solairua.

Orain arte, garajeentzako solairuak eta **erdisotoa** eraiki dituzte. Berria - Kultura

Uri eraikina hiru solairutan banatzea proposatzen dute arkitektoek: **erdisotoa**, behe solairua eta goi solairua. Berria - Kultura

Erdisotoan karga eta deskarga lanak egingo dira, handik sartu eta aterako dira obrak. Berria - Kultura

---

erditar *iz adkor cf* **herritar**.

Orwell eta euskal **erditarrok**. Iñigo Aranbarri

---

erditaratu, erditara(tu), erditaratzen da/du *ad ipar* erdia izatera etorri edo ekarri.

Gauza kuriosa gertatzen da, iaz erreberritu lan konbenioa indarrean emaitearekin langilek soldatak **erditaratzen** ikusten baitituzte uztail honetaz geroztik. Herria

Hori ikustearekin deliberatu dute aurten **erditaratzea** holdinak duen 120 Milioi euroko ziloa. Herria

Elizak erre, apez batzueri lepoa moztu; Irisarriko eliza-dorre ederra **erditaratu** zuten, eliza eta ospitalea errautsi.Turismoa ere hor da, han gaindi garrantzia haundia duena, handik eta Tailandiaraino eta kondatua dute lehengotik abantxu **erditaratua** dela tokika, hainbeste jenderi bizipidea kenduz, Europa huntarik guzitik ere harat joaiten ziren bakantzatiarrekin. Herria

---

erditradizional *izond* erdizka tradizionala.

Balioen konflikto nahasi batean murgilduak bizi gara: gizarte **erditradizional**, erdimoderno, kontserbakoi, anarko, erlijioso, pagano lardaska batean, ez mundu bateko ez besteko, trantsizio krisietan ohi den eran. Joxe Azurmendi

---

erditsu *iz* gutxi gorabehera erdia.

Orain dela mende **erditsu** bat. Txillardegi

Oren **erditsu** batez oihuka ari izanik, gehienek bozik ez zuten gehiago. Marzel Etxehandi

Urte eta **erditsu** pasa da Labartzatik aldegin nuenez geroztik. Txillardegi

Hilketa hauetatik **erditsua**, Erdialde eta Hego Ameriketan zein ere Kariben gertatzen dira. Berria - Mundua

Liburuaren **erditsua** idatzi nituen eta argitaratu ziren artikuluz osatuta dago. Berria - Kultura

Bizkaiaren **erditsua** bakar-bakarrik; gaineratikoak, gaineratiko guztiak Franco jenerala du bermatzen. Jokin Urain

Mindurak ura du baregarri, baregarriak egarria du **erditsuan**, **erditsuak** itsua du laguntzaile, laguntzaileak ilea du gorputzean. Iñaki Arranz

Abuztu **erditsuan**, eta aurreikusi bezala, bisitaldi labur bat egin nuen Oñati aldera lau egunez. Txillardegi

Martxo **erditsutan**, nik uste, apez alemanak lanetik bozkarioz sartu ziren. Marzel Etxehandi

Antzeko kinka larria nozitzen da Himalaia **erditsuan** dagoen Bhutanen, baina biktima kopururik ez zen jakitera eman, atzo behintzat. Berria - Mundua

Zintzurraren **erditsutan**, gorgoilari hurbil, halako korapilo tinki batek, arnasaren behar bezala hartzera ere ez ninduen uzten. Daniel Landart

Goizaren **erditsutan** ziren eta eguraldia lainotsua izan arren eguzkia hasten zen agertzen. Ramuntxo Etxeberri

Arrobigaineko dorre zaharra begiratu dut, eta farola berria mazelaren **erditsuan**. Kale mehar luze bateko **erditsuan** aurkitu dut Kale Nagusiko 45eko sotoa. Txillardegi

Urri **erditsuko** arratsalde batez, baratzeko bidetik ikusi zituzten bi emazte heldu, bata besteari bermatuz. Elena Touyarou

Baiona eta Uztaritze arteko bide **erditsutan**, Joantto Ithurbide ideiaz aldatu zen. Elena Touyarou

Sara eta Amotz auzotegiaren **erditsutan** kokatuak ziren guardek Kontsistorioko kideak azken puntan abertitu zituzten. Elena Touyarou

Abendo **erditsutako** beharko da egin harat-hunata. Herria

Mende **erditsuraino** iraun du feria berezi horrek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abendo erditsutan (4); **agorril erditsutan** (4); **arratsalde erditsuan** (6); **arratsalde erditsutan** (3); **azaro erditsutan** (3); **bide erditsuan** (3); **erditsu bat** (4); **erditsu hortan** (5); **erditsutan edo** (4); **erditsutan edo hola** (3); **erditsutan eta** (3); **goiz erditsutan** (3); **hemeretzigarren mende erditsutan** (4); **martxo erditsutan** (4); **mende erditsu** (4); **mende erditsuan** (3); **mende erditsutan** (11); **partida erditsutan** (3); **urri erditsutan** (4)

---

erditu ik **erdi[2]**.

---

erditxi ik **erdi[1] 11**.

---

erditxo 1 *iz adkor* erdia.

Laurdentxo bat baino ez naiz, **erditxo** bat, bezpera bat, izatera iristen ez den hats galdua. Karlos Linazasoro

Petrusek ez du aski izango bere hektarea eta **erditxoa** betiko goldatzearekin. Oskar Arana

Doktorea arras zurbildu zen azkeneko hogeita hamar urteetan egunero-egunero antzinako garaietako dozena **erditxo** bat dama gazte ziplo bazkaldu zituela gogoratuz. Josu Zabaleta

Minutu irabazita dabil, eta goizetik artean ere minutu **erditxo** bat berandutuko da eguzki nagia. Pello Zabala

Ea, minutu **erditxo** bat duzue igartzeko. Joxerra Garzia

2 ***hitz erditxo***

Eta zuk **hitz erditxo** bat ere ez diozu esan. Askoren artean

Alabaina, inspektore baten belarrian **hitz erditxo** bat esan eta haren sakelan zenbait errublo isurtzea aski izan zen bidea zabaldu ziezaioten. Karlos Zabala

Neskak begirakune tinkoa josi zion eta, **hitz erditxorik** esan gabe, bidean aurrera egin zuen. Patxi Zubizarreta

3 ***ordu erditxo*** *adkor* ordu erdia.

Zaude **ordu erditxo** bat. Matías Múgica

Albertoren pisua institututik gertu zegoen, eta, jolas-orduero klaseko mutil gehienek jokatzen zuten futbol partidua batere interesatzen ez zitzaigunez, **ordu erditxo** hura hantxe pasatzen genuen, askotan. Iban Zaldua

Ordu erditxo horretan amak alabatxoa aldi guztian altzoan estu-estu eginda izaten du Alabatxoa denbora horretan ez da nigar egitetik gelditzen. Gotzon Garate

Han gosari legea egin zuten **ordu erditxo** batean, eta berriz abiatu ziren kopek eder batzuen promesik gabe nekez ulertuko zen abiadura biziaz. Karlos Zabala

Eta aztoratzen zen, Gavardek ogi xerra bat ematen zionean, baina berehala sartzen zuen xerra gantz ontziaren barruan, **ordu erditxo** batez astiro-astiro friji zedin. Karlos Zabala

---

erditzal ik **erdi**[1] **12**.

---

erditzali ik **erdi**[1] **13**.

---

erditze **1** *iz* sabelean den umea edo umeak mundura ekartzea.

Erditze oro da ankerra, horrelakoxea da gure **erditzea** . Ramon Etxezarreta

Erditzea zesarea bidez izan zen, eta data uztailaren 15ean 08: 00etarako jarri zioten. Berria - Euskal Herria

Eustatek kaleratutako txostenak dioenez, **erditzeak** ere ugaritu egin ziren 2002an. Berria - Euskal Herria

Emazteak, hortzik gabe, eta sabela beti puztuta, ia abereen axolagabetasun bera zuen haurdunaldiei, **erditzeei** eta haurren heriotzei zegokienez. Josu Zabaleta

Erditzearen ondoren bere onera etorri zenean, bazihoala esan zidan, bazihoala Bilbotik kanpora, norabait. Aitor Arana

Erditzearen ondorengo hilabeteak ez dira errazagoak, baina erditu aurretik ez zegoen beste bat sartzen da tartean. Arantxa Iturbe

Afganistanen, Bangladeshen, Etiopian eta Nepalen **erditzeen** %15etan baino ez da egoten osasun langile ikasirik. Berria - Gaiak

Erditzeen %88,4 ospitale publikoetan izan ziren. Berria - Euskal Herria

Erditzean elbarriturik geratu badira, zoko batera jaurtitzen dituzte, handik pixka batera beren seme-alabak ez dira berenak, eta beren edertasuna galdu dute. Josu Zabaleta

Aitona Miguelek bazekien emaztea haurdun berriro gelditzen gero hil egingo zela **erditzean**, amonak ere bazekien, nolako krudeltasuna haurdun gelditzeko arrisku guztiak ez saihestea. Mikel Hernandez Abaitua

Ama Ersilia Santacroce -Beatricek zazpi urte besterik ez zituela hil zena Francescorekin izandako 12 seme-alabetako azken bizkiez **erditzean**-. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sendagileak esan zuen lehenengo erditzeak zailak izaten zirela beti, baina Andres susmoa hartzen hasia zen hark ez zuela **erditze** normal baten itxurarik. Josu Zabaleta

Zomorroen burrunbaz betetako isiltasuna zen hangoa, **erditze** zoriontsuaren ondorengo logalea. Karlos Zabala

Eta sentitzen zuen bakarra mina zenez (nahikoa **erditze** gogorra izan zuen), gezurra esan ziotela esaten zuen. Arantxa Iturbe

Erditze mingarria izan zuen eta emaginak esan zion: "Ez izan beldur, mutikoa duzu berriro". Jose Antonio Mujika

Erditze xamurra, Hannak dioenez; ama bezala oso zoriontsu sentitu zela, hori bakarrik du gogoan. Joxe Austin Arrieta

Erditze luze eta mingarriak zituzten emakumeak ere, belar hura sabel gainean ipiniz, onik erditu ziren. Askoren artean

Eleberri honen kasuan, arrazoia haurdunaldia eta **erditze** zorigaiztokoa da, ama-semeak hiltzen baitira, eta Andres Hurtado bere buruaz beste egitera eraman. Josu Zabaleta

Erditze goiztiarretarako inkubagailuak. Joxe Austin Arrieta

Arjumand Banu Begum **erditze** ondorengo gaixotasunez hil zen, hamalaugarren seme-alaba izan ondoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eskaera guztien artean, nagusi dira bigarren seme-alabagatik egindakoak (%82); hirugarrenagatik, berriz, %13 eskatu ziren; eta, gainera, %5 **erditze** anizkunengatik. Berria - Euskal Herria

Sendagileak esan zuen lehenengo **erditzeak** zailak izaten zirela beti. Josu Zabaleta

Azaldu zuenez, nerabezaroa bizitzako bigarren **erditzea** da. Berria - Euskal Herria

Oinazerik gabeko **erditzea** aukeratuta ere, mina izaten da. Arantxa Iturbe

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Giza primateen burezurra artean ere handituz zihoan, eta, aldi berean, bi hankan ibiltzearen ondorioz, **erditze** kanala estutu egin zitzaigun. Luis Elberdin

Batez besteko **erditze**-adina parekoa da hiru herrialdetan, 32 urteen gainetik. Berria - Euskal Herria

Erditze-garaia iritsi zitzaionean, Tamarrek bikiak zituen bere erraietan. Elizen arteko biblia

Kartzelatuak askatu zituen, itsasoan galduak salbazio-portura ekarri, **erditze** une larritan zeudenei aise haur egitea eman, deabrudunen gorputzetik deabruak uxatu. Askoren artean

Arrisku handiko herrietan zazpi andreetatik bat hiltzen da **erditze** orduan, edo erditzean gertatutako arazoengatik. Pello Salaburu

Mariri so egin zion, eta altzoan zeukan haurrari so egin zion; korapilo bat sentitu zuen zintzurrean eta tarrapatan atera zen etxetik, **erditze** gau hartan egin zuen bezalaxe, nehork ez zezan ikus negarrez. Elena Touyarou

Annie Duchesne andereñoaren **erditze**-eguna. Joseba Urteaga

Erditze-ondoko sukarraren aurkako borroka. Joxe Austin Arrieta

Erditze arriskutik onik ateratako andreak. Orain urte batzuk -ez hainbeste-, aitari ez zitzaion **erditze**-gelan sartzen ere uzten. Askoren artean

Entzun egin behar zaie bi amari bakoitza bere **erditze**-esperientzia kontatzen, lekukorik ez dagoenean. Arantxa Iturbe

4 irud/hed

Luze jo zuen legearen **erditzeak** . T Demokraziaren sorreraren lekukoak gara, eta **erditzea** beti da mingarria, azken gauotan ikusi dugun bezala. Berria - Harian

Erditzea urte beteko lanaren emaitza izan da eta euskalgintzako zein herri mugimenduetako eragile ugari bildu dira zuzenean bizitzeko sorrera. Berria - Euskal Herria

5 ***erditze min*** *pl* erdiminak.

Erditze-minak hasi zitzaizkion gauean, Juana Bixentaren amak, keinu kortesiatsu batez, alboko gela batera bidali zuen indianoa. Anjel Lertxundi

Buruko minari aurre egiteko aspirina hartzeko erreparorik izaten ez duen pertsona bat baino gehiago haserretu izan zait, **erditze**-minak ez jasateagatik, edozer gauza egiteko prest nengoela entzundakoan. Arantxa Iturbe

Halakoetan, horiz jantzitako erizain ongi armatu batzuek **erditze**-minetan dagoen gaixoa hartu eta, begiak estalita, jaioberrien atalera eramaten dute. Iban Zaldua

· *(singularrean)* Baina artean Efratatik urrun samar zeudelarik, Rakelek **erditze**-mina sentitu zuen. Jose Antonio Mujika

Nahiago izaten du etsipena, beste mundu bat, utopia, ez dagoena, dagoena baino, eta beti dabil kexuka eta negarrez, **erditze**-minak joa. Markos Zapiain

---

erditzealdi *(orobat **erditze-aldi**)* *iz* norbait erditzen den aldia.

Zeharkaldia behar bezala burutu denean, elizaren transmisio-zerbitzuan "ernaldiaren" ondoren **"erditzealdia"** dator. Iñaki Mendiguren

Guk hemen aski dugu hori Kristau Elizak bere **"erditzealdian"** jokaturiko paperaren adibide gisa hartzea Inoren laguntzarik gabe geratu zen ama **erditze**-aldian; hamahiru ordu geroago iritsi zen izeba, bioi laguntzera. Iñaki Mendiguren

---

erditzear **1** *adlag* erditzeko zorian.

Horregatik baizik ez ditut indiar emaztekiak hartzen, eta horregatik igortzen ditut haiek, **erditzear** direnean, beheko txaboletarat. Joan Mari Irigoien

Erditzear zegoen Viterboko andre batek erditzetik baino hiltzetik hurbilago zirudien, emakumeen erdimin normalen estuasunez aparte erraietako minez baitzegoen. Askoren artean

Emaztea **erditzear** zegoela, Jules Renarden jaiotetxera joan zirenean, amak errainagana azaldu zuen jokabide krudelak haurtzaroan pairatutako oinazeak berritu zizkion. Itziar Otegi

Big Lanniek ez zuen jakiterik izan Arlene haur batez **erditzear** zegoenik. Mirentxu Larrañaga

2 irud/hed

Zerua bederatzi hilabeteko emakumea bezala zegoen, **erditzear**. Unai Iturriaga

Neskak sabairantz begiratu zuen, teoria sakon bat **erditzear** balego bezala. Fernando Morillo

Urez hanturiko lainoek multzo trinkoa osatzen zuten, bezperako eurien memoriaz **erditzear**. Itxaro Borda

---

erdiuharte *iz* penintsula.

Alexandrok Egipto konkistatu zuenean, oso gutxi ezagutzen zen Itsaso Gorria, eta batere ez itsaso horrekin bat egiten duen ozeanoaren aldea, batetik Afrikako eta bestetik Asiako kostak bustitzen dituena; uste zen ezinezkoa zela Arabiako **erdiuharteari** bira ematea. Iñaki Iñurrieta

Grezia **erdiuharte** handia zen, non lurmuturrek itsasoa atzerarazten zutela baitzirudien, eta golkoak alde guztietatik irekitzen zirela, hura berriro hartzeko bezala. Iñaki Iñurrieta

Geratu egiten ziren etapetan, eta ez zuten inguratzen Gangesez hemendiko **erdiuhartea** Komorik lurmuturretik eta Koromandelko kostatik. Iñaki Iñurrieta

---

erdiurratu *izond* erdizka urratua.

Eskerrak, pareta **erdiurratuetan** ezezik, erabat urratu eta abandonatuetan ere, maiz ikusia naizen hurritza, harri tarte ilun hutsetik bizia ateratzen! Patziku Perurena

Neure biziak ere, gero eta antza haundiagoa dizu, harri hutsezko pareta **erdiurratu** horiena. Patziku Perurena

Horixe du bere biziko sekretu guzia: "lehen harritze" guzien gainean, harririk harri, eraikitako pareta **erdiurratu** eta sekretu horixe. Patziku Perurena

---

erdiuste *iz* uste osoa ez dena.

Orduan Mr. Cardenasek esan du badirela **erdiuste** eta okerkuntza batzuk, denbora igaro ahala argituz joango direnak. Edorta Jimenez

---

erdiustel *izond* erdizka ustela.

Sorrera berdintsua izan lezakeen beste musika tresna, euskaraz *ziburrun, zinburrun, zinburrin, zinbrin, zinburrinete* eta antzera deitu izan dena litzateke nere uste agian **erdiustelean**. Patziku Perurena

---

erdixka *adlag adkor* erdizka.

Besteetan **erdixka** ibili ohi direnak, zeru-sabaian borrokaren hondar-zaborrak hor uzten dituztela, oraingoan ez; egun ero honetan, bakoitzak bereari eutsi zion: oskarbian guztiz oskarbi, eta hodei eta euri abiatutakoan, guztiz hartara. Pello Zabala

Baina, **erdixka** utzi zigutena arakatu, handik eta hemendik aztertu, probatxoak egin, hanka-sartzeak tartean direla, [...]. Pello Zabala

---

erdizirkular *izond* zirkulu erdiaren forma duena.

Abside **erdizirkular** baten modukoa zuen sabaia, eta gailur-gailurrean gorantz egiten zuen tximinia zabal batetik inoiz ikusi dudan argi zurienak erdi itsutu ninduen. Anjel Lertxundi

Adreiluzko bobeda **erdizirkularra** duen soto batean geunden. Anjel Lertxundi

Halakoak dira, adibidez, harmailak, korridore **erdizirkularrak**, parapetoak, korridoreak, eskailerak, plataformak, tribunaliak eta sor daitezkeen beste hainbat. Santiago Iruretagoiena

Harrapakin bila, begirada **erdizirkular** batez begipean hartu nuen antzeztoki guztia. Aingeru Epaltza

---

erdizirkulu *iz* zirkuluerdia.

Pupitrearen gainean, berriz, tintontziaren azpiak markaturiko zirkulu eta **erdizirkuluak** ugaltzen ziren. Joseba Sarrionandia

---

erdizka **1** *adlag* ez osorik, ez erabat; erdia-edo zerturik.

Moskuko jai inperialean osoki ikusi zintudan, Nijni Novgoroden **erdizka** baino ez. Karlos Zabala

Batzuk osorik biluzik ageri ziren, besteak **erdizka**. Koro Navarro

Ez **erdizka**, bainan osoki eta bururaino: kurutzeraino eta kurutzean hiltzeraino. Herria

Egia esateko, **erdizka** bazen ere, bat nentorren haiekin. Mirentxu Larrañaga

Gauzak **erdizka** egiteko, gehiagorako baliabiderik ez dagoelako, hobe da gauzak dauden horretan uztea. Berria - Euskal Herria

Erdizka ulertu beharrekoa osorik ulertu nahi zuten, eta halakoetan badakizu noski arrisku handia dagoela ezer ez ulertzeko. Koldo Izagirre

Erdizka dabiltzan giltzurrunak ere balekoak dira transplantatzeko. Berria - Gaiak

-Ez ote litzateke ikustekoa baldin eta...? -esan zuen neskak, eta irribarre egin eta **erdizka** utzi zuen esaldia. Koro Navarro

Horregatik, eskerrak eman behar dizkiegu ez **erdizka** baizik eta modurik beteenean. Santiago Iruretagoiena

Esaten dit udan kanpin batean mutil bat ezagutu zuela, eta pare bat aldiz egon zirela elkarrekin, eta **erdizka** egin zutela, eta hirugarren aldian jada egin zutela erabat. Luis Elberdin

Sareta zikin batek **erdizka** estaltzen zuen leihoa. Koro Navarro

"Txikia berriz **erdizka** konturatzen da", esan zidan Mary Annek. Bernardo Atxaga

Tapizaren gainean **erdizka** etzaten zen, bizkarra gakoturik, giltzurrun aldeari bere balio guztia emanez. Karlos Zabala

Eskuineko eskua itxita zegoen; ezkerrezkoa **erdizka** irekia. Koro Navarro

Erdizka gauzatutako pentsamendua zen; horrelakoak asko izaten baititu gizonak, inoiz osatzen ez direnak. Koro Navarro

Gauza asko uzten ditu **erdizka** betiko alde egiten duenak. Imanol Zurutuza

Orgasmoaren plazerraz begiak **erdizka** baizik ez nituen ireki. Aitor Arana

Ateraldi bitxiak ditu, **erdizka** baino ulertzen ez direnak. Juan Garzia

Agindutakoak **erdizka** bakarrik betetzen dira gehientsuenetan, eta halaxe gertatu zen kasu hartan ere. Bernardo Atxaga

Ate baxua zen, **erdizka** baino zabaltzen ez zena. Karlos Zabala

Ekar diezadala edalontzi bat **erdizka** ur hotzez eta **erdizka** ur epelez betea. Patxi Zubizarreta

Begi argi-argiak zituen, **erdizka** urdinak **erdizka** berdeak. Bernardo Atxaga

Nirea **erdizka** galdera **erdizka** baieztapena zen. Jon Alonso

Ohituta zegoen hitz **erdizka** mintzatzen, adimen zorrotzak hitz gutxi behar duela esaten zuen beti. Anjel Lertxundi

Gero beste batzuk paratu ziren herronka karratuan, beltzez, eta gorriz, eta zuriz margotuak, eta zenbait kolore **erdizka**, kantari eta dantzari Oki beren idoloaren aurrean. Juan Garzia

Bi urte aritu naiz jauzi, **erdizka**, dobla, pika, luze eta ebats, itzalekin borrokan, punch-a galtzeko beldurrez. Iñigo Aranbarri

Nuevo Zorrillako harmailak **erdizka** baino gutxiago bete ziren; 9.000 ikusle eskas. Berria - Kirola

2 (izen baten eta dagokion izenondoaren artean)

Espainiar batailoiek, gehienak azaroan gaztetxo **erdizka** prestatuekin osatuek, defentsa bikaina egiteaz gainera eraso ere egin dute. Edorta Jimenez

Nire esku **erdizka** trebatuak bidea galdu gabe ibiltzeko. Aingeru Epaltza

3 (izen gisa) erdika.

Eltzeek aurreneko berenganatu zuten gizona gatibu; gogoz asko hartuko zuen eltze **erdizka** bat. Patxi Ezkiaga

4 *ipar* erdi bana.

Zelaiko bide baten xuxentzea aipatua izan da Mendiboure jabearekin, gastuak **erdizka** eginez. Herria

Herriko hil hobi bat eginen da laster, xaharretxeak eta herriak ordainduko dutena **erdizka** (5500 Euro). Herria

Legezko parekotasun horren izenean, orain arte euskara hutsean erakatsi diziplinak **erdizka** frantsesez erakatsi beharko dira. Herria

Sorpresarik ez dago **erdizka** partekatuko da gastua Baiona/San Andres eta Angelu/Montauryko guneen artean. Herria

5 ***erdizkako*** *izlag* ez erabateko.

Eta, bete-betekoa iristean, desagertu egingo da **erdizkakoa**. Elizen arteko biblia

Erdizkako egiak gertuago egon ohi direla gezurretik egiatik baino. Imanol Zurutuza

Azkenean, onartu behar izan genuen bizitzan ez dela **erdizkako** konponbiderik izaten, zerbait hasia zela urte asko lehenago eta hura amaitzeko mementoa heldua zela. Ander Irizar

Generoaren eskema interpretatiboei jarraitzen die Zelanok, Frantzisko santutasun-**eredutzat** aurkeztuz. Askoren artean

Arimen salbaziorako, perfekzio-**eredu** izan nahi zuen. Askoren artean

Aginte-**eredu** zentralista gailendu zen eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa bi administrazio ezberdinetan banatu zituzten. Askoren artean

Dolarra diru-**eredua** ez den arren, nagusi dela esan daiteke, bai nazioarteko merkataritza eta finantza eragiketetan, bai erreserba diru gisa ere. Iñaki Heras

Eta horrek guztiak ekoizpen **ereduaren** aldaketa ekarri du. Iñaki Heras

Halako plangintza-**eredu** bati jarraitzea gaiaren inguruan analizatzen eta deskribatzen hasteko probetxuzkoa izan badaiteke ere, ez da nahikoa. Askoren artean

Oso eroso sentitzen dira garapen **eredua** zalantzan jarri gabe, helburu ekonomiko sinplista batekin. Iñaki Heras

EAEn zein Katalunian bizikidetza **ereduari** buruzko eztabaidak abiatu direla. Berria - Euskal Herria

Gaur egungo familia **eredua**, jabetza pribatuari lotuta azaldu zen. horrek esan nahi du atzo goizeko kontua dela gaur egungo bikote **eredu** hori. Luis Elberdin

Zientzia eta teknologia oinarri dituen gizarte industrial honek sortutako arriskuak geure aurrerakuntza-**eredua** bera ezbaian jartzera iritsi diren honetan. Askoren artean

Orain, TInd formaldatzea eratzen dugu, Tez formaldatzeak eskatzen duen kateen egitura-**eredu** bera eskatzen duena. Itziar Laka

Loturarik gabeko hitz andana bati ematen zaion doinu-**ereduaz**. Itziar Laka

Maiztasun-**ereduek** ez dutela argirik egiten egitura sintaktikoaren oinarrizko arazo batzuetan. Itziar Laka

Behin eta berriro esan da, gizarteak hizkera **eredu** jakin bat onartuko badu, bizia eta hiztunendako gertukoa izan behar duela. Koldo Zuazo

Egoera mugatuko automatek hizkuntzaren egituran ezartzen dituzten mugak ez dira sortzen osagai-egiturazko gramatika-**ereduan**. Itziar Laka

5 (hiru osagaiko elkarketetan)

Julie Lescaut: Hartzen dut filma hau polizia filma **eredu** gisa. Herria

Egungo bizi-maila **ereduak** ez du zertan bizi-kalitatea bermatu. Berria - Gaiak

Filosofiaren diziplina ez da gizarte bizi-**eredu** berriek sortu duten gogoetaren emaitza eratorria. Askoren artean

Hizkuntz teoria **eredu** "abstraktuago" baten bila. Hizkuntzaren errekurtsibitatea "argimen" batean [...] atzeman nahirik, Chomskyk osagai-egitura **eredua** perpaus horietatik sortzen den itxurapena "formaldatzen" duten eragiketekin bateratzen du. Itziar Laka

6 ***eredura*** *(orobat* ***eredurat****)* ereduaren arabera.

Teoria horren **eredura** eraikitako gramatikak guztiz konplexuak, ad hoc, eta "ilunak" izango liratekeela erakustea. Itziar Laka

Ongia, beraz, deituko dut engoitik, helburu dugun giza izaeraren **eredura** gero eta gehiago hurbiltzeko bidea dela segur dakigun zer hura. Piarres Xarriton

7 ***ereduzko*** *izlag* eredugarria.

Ereduzko zigorra merezi du, zalantzarik gabe. Juan Martin Elexpuru

Benetan zaila da, jasan ezin dituzun pertsonen aurrean horrelako jokaera **ereduzkoa** edukitzea, itxura hutsa denean batez ere. Josu Zabaleta

Osagarri hauek zuzenean S, F motako gramatika batean biltzen saiatzen garenean erabat korapilatsua dirudien arren, aditz forma hauen jokabidea guztiz **ereduzkoa** da. Itziar Laka

Europaren eraikuntza, munduko beste eskualdeentzat **ereduzkoa**, inguruko herrialdeentzat erakargunea, epe luzera munduko ekonomiak pairatzen duen lankidetza faltaren irtenbidea izan daiteke. Koro Navarro

Aldi berean buruan egina zuen zer zen senar eta aita **ereduzko** bat, baina Balbo erabat bestelakoa zen. Fernando Rey

Ikerketa sistematikoki bultzatuz; eta, kasurik gehienetan, sektore pribatuarekiko sinergia **ereduzko** baten bidez. Koro Navarro

Antzinako munduko bi irudi **ereduzkoetariko** baten bihotz-bihotzean hautsi, hain zuzen: karratuan. Jon Muñoz

8 modeloa.

Negatiboak erabiltzen dituen kamera bakar bat egingo du aurrerantzean Nikonek, F6 **eredua**. Berria - Gaiak

Buechelen bakarrik, gutxienez B-61 **ereduko** hamaika bonba atomiko daude. Berria - Mundua

Kanadako Bombardier enpresari, berriz, CRJ 700 **ereduko** 36 hegazkin eman zizkion. Berria - Ekonomia

Berak ere euritakoa hartuta, 3 **ereduko** C7 inprimakia bete, gutuna itzultzeko eskaria, eta biltegira itzuli zen zorion irribarrearekin aterkiz mukuru zegoen Lisboa kaletik zihoala. Bego Montorio

Familiek gero eta gehiago matrikulatzen dituztela beren seme-alabak D **ereduko** hezkuntzan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Falcon **eredukoa** zen airekoa. Berria - Mundua

1918ko T **ereduko** Ford berde iluna baitzen, zoritxarreko uholdeen ondorengo urtean Napumoceno jaunak enkargatua. Bego Montorio

HP urtea hasi zenetik ari da Linux duten bi ordenagailu **eredu** saltzen Hego Amerikan. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

auto eredu (7); **baina eredu** (19); **baten eredu** (7); **bere eredu** (8); **beste eredu** (40); **beste eredu bat** (18); **beste eredu batzuk** (10); **beste estatu eredu** (7); **bestelako eredu** (13); **bi eredu** (21); **bizi eredu** (12); **da eredu** (22); **den eredu** (32); **dira eredu** (6); **diren eredu** (7); **dituen eredu** (7); **du eredu** (10); **duen eredu** (23); **dugu eredu** (7); **dugun eredu** (6); **dute eredu** (15); **duten eredu** (6); **edo eredu** (13); **egungo eredu** (12); **ekoizpen eredu** (8); **ere eredu** (14); **eredu bakar** (12); **eredu bakarra** (31); **eredu bat** (132); **eredu bat baino** (6); **eredu bat da** (7); **eredu baten** (23); **eredu batzuk** (19); **eredu bera** (15); **eredu berbera** (7); **eredu berri** (59); **eredu berri bat** (31); **eredu berri baten** (8); **eredu berria** (36); **eredu berriak** (31); **eredu berriaren** (8); **eredu bezala** (11); **eredu bi** (7); **eredu bihurtu** (11); **eredu bilakatu** (8); **eredu da** (12); **eredu dela** (6); **eredu dira** (10); **eredu edo** (7); **eredu egokia** (6); **eredu ekonomiko** (25); **eredu ere** (6); **eredu eta** (37); **eredu ezberdinak** (6); **eredu federala** (10); **eredu gisa** (54)

eredu hau (12); **eredu honen** (8); **eredu hori** (92); **eredu hori ez** (6); **eredu horiek** (21); **eredu horien** (8); **eredu horrek** (31); **eredu horrekin** (9); **eredu horren** (43); **eredu horren arabera** (6); **eredu horretan** (9); **eredu horri** (13); **eredu iraunkor** (8); **eredu izan** (52); **eredu izan behar** (12); **eredu izan nahi** (10); **eredu izango** (11); **eredu izatea** (10); **eredu izateko** (6); **eredu jakin** (20); **eredu jakin bat** (7); **eredu nagusia** (6); **eredu neoliberala** (8); **eredu neoliberalari** (7); **eredu propioa** (8); **eredu sexuala** (6); **eredu sozial** (15); **eredu soziala** (7); **eredu zen** (6); **estatu eredu** (20); **estatu eredu bat** (8); **eta eredu** (117); **eta eredu hori** (15); **eta eredu izan** (8); **eta gizarte eredu** (6); **europako eredu** (6); **ez da eredu** (7); **ez eredu** (10); **familia eredu** (17); **familia eredu berriak** (6); **garapen eredu** (24); **garapen eredu berri** (6); **gizarte eredu** (39); **gizarte eredu berri** (6); **gure eredu** (9); **hainbat eredu** (9); **harreman eredu** (8); **hezkuntza eredu** (8); **hizkera eredu** (11); **hizkuntz eredu** (7); **hizkuntza eredu** (12); **horren eredu** (11); **jai eredu** (9); **molde eta eredu** (13); **nagusitu den eredu** (8); **nekazaritza eredu** (6); **oinarritutako eredu** (6); **oso eredu** (7); **zen eredu** (13); **zuen eredu** (9)

a eredua (36); **b eredua** (13); **bere eredua** (14); **d eredua** (44); **d eredua da** (7); **da eredua** (10); **den eredua** (17); **dituen eredua** (6); **duen eredua** (23); **duten eredua** (6); **egiteko eredua** (6); **egungo eredua** (9); **eredua agortuta** (9); **eredua agortuta dagoela** (8); **eredua aldatu** (16); **eredua aldatzea** (9); **eredua aldatzeko** (10); **eredua bera** (9); **eredua bertan** (6); **eredua bertan behera** (6); **eredua bultzatzen** (6); **eredua da** (51); **eredua dela** (11); **eredua ere** (11); **eredua eta** (23); **eredua ez** (24); **eredua ez da** (9); **eredua ezarri** (8); **eredua izan** (12); **eredua jarraitu** (10); **eredua kolokan** (8); **eredua oso** (7); **eskola eredua** (6); **espetxe eredua** (7); **estatu eredua** (24); **eta eredua** (7); **garapen eredua** (10); **gizarte eredua** (34); **gure eredua** (11); **haren eredua** (7); **hezkuntza eredua** (11); **hizkuntz eredua** (9); **hizkuntza eredua** (6); **kataluniako eredua** (13); **zuen eredua** (6)

a ereduak (11); **a ereduan** (44); **a ereduaren** (7); **b ereduak** (9); **b ereduan** (15); **d ereduak** (26); **d ereduan** (92); **d ereduan ikasten** (6); **d ereduaren** (44); **d ereduaren alde** (9); **d ereduaren aldeko** (15); **ereduak aldatu** (8); **ereduak ere** (8); **ereduak eta** (9); **ereduak ez** (24); **ereduak ez du** (10); **ereduan eta** (6); **ereduan ikasi** (6); **ereduan ikasten** (7); **ereduarekin bat** (6); **ereduaren adibidea** (6); **ereduaren alde** (17); **ereduaren aldeko** (20); **ereduaren arabera** (24); **ereduaren gainean** (10); **ereduaren inguruan** (14); **ereduaren inguruko** (6); **ereduaren kontra** (6); **ereduari buruz** (25); **ereduari buruzko** (34); **ereduari buruzko eztabaida** (11); **ereduari dagokionez** (9); **ereduari jarraiki** (13); **ereduari jarraitu** (8); **ereduari jarraituz** (11); **estatu ereduaren** (27); **estatu ereduari** (31); **estatu ereduari buruz** (9); **estatu ereduari buruzko** (12); **eta b ereduak** (6); **eta d ereduan** (16); **eta ereduak** (14); **garapen ereduari** (6); **gizarte ereduaren** (9); **hezkuntza ereduak** (7); **hizkuntz ereduak** (7); **hizkuntza ereduak** (9)

a ereduko (21); **b ereduek** (8); **b ereduko** (8); **d ereduen** (7); **d ereduetan** (15); **d ereduko** (50); **ereduei buruzko** (6); **ereduek ez** (11); **ereduen artean** (7); **ereduen inguruan** (7); **ereduen inguruko** (6); **ereduen politika** (12); **ereduen politikak** (9); **ereduen sistema** (15); **ereduko ikasle** (7); **ereduko ikasleek** (7); **ereduko ikasleen** (7); **eredurik ez** (14); **eredurik gabe** (6); **eredutzat hartu** (14); **eredutzat hartzen** (14); **ereduzko prosa gaur** (6); **eta b ereduek** (8); **eta d ereduen** (7); **eta d ereduetan** (15); **hezkuntza ereduen** (12); **hizkuntz ereduen** (21); **hizkuntza ereduen** (19)

---

eredubide *iz* eredua.

Laudatua biz hortaz Jainkoa, zuk pirata esaten diezun horiei aukera eman dielako gure arbasoek zeramaten bizimodu jator eta erkidearen **eredubidea** erakusteko. Juan Garzia

Bira hire jantziak hire diru-poltsaren neurriko, baina nabarmenkeriarik gabe; aberats, ez deigarri; zeren arropatik ezagutzen baita sarri gizona, eta Frantziako jende maila eta gradu gorenekoak bikain jauntzen baitira **eredubide** horretan. Juan Garzia

---

eredugarri **1** *izond* eredutzat hartu behar dena.

Bertute handiko pertsona **eredugarriaren** bizia darama. Piarres Xarriton

Eliteko kirolaria **eredugarria** delako, ahor! Eta zergatik da **eredugarri**? Gizakiaren berezko mugak gainditzeko ahalegin etengabean diharduelako beti. Joxerra Garzia

Rufinek bi erabaki sendo hartu zituen: preso **eredugarri** bihurtzea eta handik ihes egitea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Langilea zen, jatorra zen, **eredugarria** zen. Berria - Ekonomia

Iragandako denborak egin duen bide luzeak eta urrutiko gertakizunek duten distirak heroi erakargarri eta **eredugarri** bilakatu dute Jean Laffitte edonorentzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure egungo egiteko handia Iranen gizarte islamiar **eredugarri**, garatu eta sendoa eraikitzea da. Berria - Harian

Bikote zoriontsu eta **eredugarria** osatzen zuten. Patxi Iturritegi

Ironiaren erabileran, **eredugarria** iruditzen zait Karlos Linazasoro. Berria - Kultura

Euskaldunok garatzeko gai izan garen hezkuntza sistema bakar, jator eta **eredugarria**. Pello Salaburu

Udako unibertsitateak dira ere ezinbesteko paradak elgar hobeki ezagutzeko eta beste eskualdetako herrien aberastasunak eta etsenplu **eredugarriak** ezagutzeko. Herria

Beti hitz egokiak, erreakzio zuzenak, jokabide **eredugarriak** eskaintzen jardun behar hori. Anjel Lertxundi

Haur eskolen zerbitzua **eredugarria** zela uste duzu? Berria - Euskal Herria

Economía en evolución (1989) liburu **eredugarrian**. Iñaki Heras

«Errepresioa, zigor **eredugarriak** eta injustizia» ez direla Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konpontzeko bidea. Berria - Euskal Herria

Leibniziar Filosofia eta newtondar Natur Zientzia batzen saiatzen da modu **eredugarrian**. Ibon Uribarri

Maitasun eta leialtasun **eredugarria**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Itoizko Koordinakundeak lan bikaina egin du, eta oposizioa **eredugarria** izan da. Edurne Elizondo

Eredugarri diren unibertsitatearen ezaugarriak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Errepublika beltza ez zen oso **eredugarria** mundu zuri zibilizatuarentzat, antza. Berria - Mundua

Eredugarritzat zeukan hartutako erabaki hori, besteok ere halaxe egin beharko genukeela. Hasier Etxeberria

2 (adizlagun gisa)

Seguru asko, **eredugarri** jartzen zizkidaten arau akademikoaren aurkako jarrera naturalaz gain badago, ordea, beste zerbait kontu horretan. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizitza eredugarri (5); **bizitza eredugarria** (3); **bizitza eredugarriak** (5); **bizitza eredugarrien** (6); **borroka eredugarria** (3); **da eredugarria** (3); **ere eredugarria** (3); **eredugarri bat** (9); **eredugarri diren** (3); **eredugarri eta** (3); **eredugarri hori** (3); **eredugarri izan** (12); **eredugarri izango** (3); **eredugarri izatea** (3); **eredugarria da** (18); **eredugarria dela** (4); **eredugarria den** (3); **eredugarria eta** (5); **eredugarria iruditu** (3); **eredugarria izan** (24); **eredugarria izan da** (10); **eredugarria izan zen** (5); **eredugarria izango** (3); **eredugarria izatea** (3); **eredugarria zen** (5); **eredugarriak izan** (4); **eredugarrien artean** (3); **eredugarritzat jo** (6); **eredugarritzat jo zuen** (3); **eta eredugarri** (4); **eta eredugarria** (12); **eta eredugarriak** (3); **oso eredugarria** (5); **talde eredugarria** (3)

eredugarritasun *iz* eredugarria denaren nolakotasuna.

Bukatzeko, haren **eredugarritasuna** aipatu zuen emakume kontuetan: inoiz ez zitzaion maitasun-konturik ezagutu ia 80 urteko bizitza luzean. Bego Montorio

Onbidean eraikitzeko, berriz, santuarenganako kultua suspertu nahi du, eta imitatua izan behar duen santuaren **eredugarritasuna** azpimarratu. Askoren artean

Guztiaren buruan, Erdi Aroko pentsaeraren **eredugarritasuna** erlijioarekiko non datzan galde daiteke. Askoren artean

Ez nuen inoiz pentsatu, baina egia hori da: inon ez da gatibutzan bezalako bizimodu ordenaturik, halako **eredugarritasunik**, are bertuterik ere. Urtzi Urrutikoetxea

---

ereduzko **1** *izlag* eredugarria.

Ereduzko gizona izan zen eta santutasun handikoa. Askoren artean

Kronikak, hitzaurrean aipatzen dituen anaien erreguek adierazten dutenez, **ereduzko** helburua du. Askoren artean

Ereduzko zigorra merezi du, zalantzarik gabe, baina naturaren laidogarri diren oinazeak eta heriotza lazgarria merezi al ditu? Juan Martin Elexpuru

Orain, egunkari guztietan idatziko ditek hil egin dela herritar zintzo bat, aita familiako on bat, senar **ereduzko** bat. Jose Morales

Ikasle saiatuari, bere jokaera **ereduzko** eta bikainarengatik. Jose Morales

Zaila, baina benetan zaila da, jasan ezin dituzun pertsonen aurrean horrelako jokaera **ereduzkoa** edukitzea, itxura hutsa denean batez ere. Josu Zabaleta

Nondik atera dira gure seme-alabak prestatzen dituzten eskoletako maixu-maistrak eta institutuetako irakasleak? Nondik goi mailako teknikariak? Nondik, askotan **ereduzkotzat** jotzen den gure osasun sisteman dauden mediku eta erizainak? Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Europaren eraikuntza, munduko beste eskualdeentzat **ereduzkoa**, inguruko herrialdeentzat erakargunea, epe luzera munduko ekonomiak pairatzen duen lankidetza faltaren irtenbidea izan daiteke. Koro Navarro

Horrexek bihurtzen du matematika **ereduzko** jakintza. Jon Muñoz

H. Gombrichen lana aipatuko dugu berriro, haren *L'Art et l'illusion* lan klasiko handia, besteren artean, **ereduzkoa** baita han erakusten duen jarrera ñabarduraz bete eta ongi arrazoituagatik. Josu Zabaleta

Poek paper erabakigarria jokatu zuen frantses literaturan: poesian **ereduzko** maisua izan zen, eta gidaria kritikan. Koro Navarro

Biziki txalotu eta eskertzen dugu, bestalde, herritar anitzek egunotan egin duten dolu adierazpen zintzoa eta eman duten erantzun irmo bezain **ereduzkoa**. Berria - Euskal Herria

2 ereduari dagokiona.

Sobietarren **ereduzko** arkitekturaz gogoeta egiteko parada. Edorta Jimenez

Marrazteko artea menderatu behar du, **ereduzko** irudiak eginez gai izan dadin obrak zer itxura izatea nahi duen erraz azaltzeko. Santiago Iruretagoiena

Esateko modu horiek, bai bata eta bai bestea, aski egokiak direlako batuan, erazko bezain **ereduzkoak** biak. Pello Salaburu

Osagai-egituraren arabera arrazoigabea eta azalezina dirudien hizkuntz jokabide jakin batek erraza eta **ereduzkoa** ematen du ikuspuntu formaldatzailea onartzen dugunean. Itziar Laka

Metagramak, berez, hizki bakar bat aldatzen du: *zirt-zart* genuke adibide **ereduzkoa**. Iñaki Arranz

Osagarri hauek zuzenean S, F motako gramatika batean biltzen saiatzen garenean erabat korapilatsua dirudien arren, aditz forma hauen jokabidea guztiz **ereduzkoa** da. Itziar Laka

Salbuespen diruditen forma hauek hain zuzen ere, automatikoki ateratzen dira, **ereduzko** kasuak azaltzeko eraiki dugun gramatikarik soilenean. Itziar Laka

Atal honetan ikusi dugu ustez loturarik gabeko hainbat gertakari azal daitezkeela, modu erraz eta natural batean, azterketa formaldatzailearen ikuspuntua onartzen dugunean, eta ondorioz, ingelesaren gramatika askoz errazago eta **ereduzkoago** bilakatzen dela. Itziar Laka

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ereduzko diren** (3); **ereduzko diren unibertsitateetan** (3); **ereduzko prosa** (6); **ereduzko prosa gaur** (6)

---

ereduztokasun *iz* ereduzkoa denaren nolakotasuna.

Ereduzkotasun historikoa ere kultura ezberdinen arteko elkarlan tolerante, betekorrean aurkezten zuen. Joxe Azurmendi

---

eregi, eregiten du *ad* jaso, eraiki.

Cesar Pellik aurki **eregiko** duen dorrearen eta Guggenheim museoaren artean altxatuko du Deustuko Unibertsitateak Ikaskuntza eta Ikerketarako Baliabideen Zentro berria. Berria - Kultura

Sotoan ekarri genituen iltzeetako batzuk ontziari berari josi genizkion, gorago altxatu behar izan baikenuen txopako gaztelua, beste bat **eregi** brankakoan, kartolak ezarri hesi legez manda bietako kareletan. Edorta Jimenez

---

ereiaro *(orobat **errearo**)* *iz* ekaina.

Ekaitzak mendean hartu gintueneko eguna **ereiaroko** hemeretzia izan zen, hots, Lisboa utzi ostean hogei egun ziren igaroak. Edorta Jimenez

Itsaso hartan nabigatzeko hilik onena ei zena, **ereiaroa**, gurean Donibane-suak isiotzen zireneko hila, alferrik galdua ez ote genuen, berori zen gure ardura nagusia. Edorta Jimenez

Ereiaroko eguzkitan eder, begien aurrean genuen Coruña. Edorta Jimenez

Eskandinavian **ereiaroa** seinalatzen zien urkiak: bere zarbatxoak lurrean tente iltzatuz seinalatzen baitzuten noraino zuten egina erein-lana. Pello Zabala

---

ereile *(orobat **eraile** g.er.)* **1** *iz* ereiten duen pertsona.

Atera zen behin batean **ereilea** hazia ereitera. Elizen arteko biblia

Uzta bildu nahi bada, **ereileak** ere irten beharko du bere garaian. Pello Zabala

Honek banitatea puzten du eta fruitu-ale baten trukean mila ematen ditu, lurra antzua eta **ereilea** dorpea izanik ere. Jon Alonso

Hazi bakoitzak du bere destinoa, baina hazi guztiak mota batekoak dira, **Ereile** berak ereinak, uzta bera jasotzeko itxaropenez. Iñaki Mendiguren

Zilar nitratozko soluzio baten tantatxo batekin ukitu nuen jalkina, eta agertuz joan zen kolore beltz-urdinak baieztatu zidan metala kadmioa zela, harako herensugearen hortzen **ereile** Kadmo haren seme urruna. Juan Garzia

Nola lur irauli berriaren ildo beltzak alorrak zeharkatzen zituen, edo nola **ereile** trebeak haziak esku-ahurrean hartu eta zehaztasun harrigarriz barreiatzen zituen, mugimendu beti-berdinez, hazi bakoitza zegokion tokian eta ez beste inon erortzen zela. Jose Morales

Desagerrarazi Babiloniatik hazi-**ereile** eta uzta-biltzaile guztiak. Elizen arteko biblia

Lehen zurtoina noiz azalduko zain dagoen hazi-**ereile** inozoa. Jon Alonso

2 irud/hed

Ele honaren **ereile**. Herria

Ereileak mezua du ereiten. Elizen arteko biblia

Atxilo hartutakoen artean, Román Eguiazabal zegoen; apaiz gaiztoa eta españar gaiztoagoa, euskal nazionalismoaren heriozko doktrinen zabaltzaile setatsua, eta egiazko aberriaren kontrako ideien eta Euzcadi izeneko amesgaizto horren **ereile** ezaguna. Inazio Mujika Iraola

Predikariak gain-gainetik goretsi du **"ereilearen** jestu zabala", azpimarratuz Etienne Salaberry urteak eta urteak arizan dela jende gaztea bereziki argitu nahiz, bide ona har zezan eta bide on hortarik beti segi. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ereilea hazia ereitera (3); **ereilearen parabola** (5); **hazi ereile** (3)

---

erein, ereiten **1** du *ad* lurra prestatu ondoren, bertan hazia barreiatu edo sartu.

Gizonak zer ere **ereiten** baitu, hura biltzen ere du. Antton Olano

Hautsetan **erein**, lokatzetan bildu. Berria - Ekonomia

Ez dute lurrik lantzen, eta berez etortzen zaizkie janariak, goldaketan edo **ereiten** ibili gabe. Juan Kruz Igerabide

Ondoren Davie Macdonaldek haziak bidaltzeko eskatu zuen, baina auskalo **erein** zituen ala ez. Anton Garikano

Begira beleei: ez dute **ereiten**, ez uztarik biltzen; ez dute bihitegirik, ez mandiorik; hala ere, Jainkoak janaritzen ditu. Elizen arteko biblia

Mila hektarea **erein** beharrean erdiak **ereiteko** bada eta beste erdietan pagadia jartzeko, orduan agian bai. Berria - Harian

Oker handirik gabe erran baitzitekeen gizon hartaz ezen nekez **ereinen** zuela bihirik buru beterik emanen ez zionik. Joan Mari Irigoien

Laborariek, sasoina jin-eta, kakahueta, mil eta tokiko ilarrak **ereiten** dituzte. Herria

Oholesiaz bestaldean alor ikaragarri zabalak ikusten ziren, eta, han **ereinda**, azak, tipulak, patatak, erremolatxak eta bestelako barazkiak. Jose Morales

Lur onean **ereindako** hazia. Askoren artean

Udazkena dator gero, lurra goldatu behar, eta udazkeneko garia **erein**. Jose Morales

Artoa **ereiteko** garaian gaude. Pello Zabala

Zekalea dago mendi-malda horretan; iaz lurrean geraturiko hazietatik sortu da; ondo asko dakit aurten ez dutela alerik **erein**. Jose Morales

Soja transgenikoa **ereitea** baimendu du Brasilek. Berria - Gaiak

Lorategi atsegingarriak landatzen dituzu eta kanpoko landare-haziak **ereiten**. Elizen arteko biblia

Martxo garia: udaberrian **erein** eta urte bereko udan biltzen dena, kalitate gutxikoa. Patxi Ezkiaga

Hazi ugari **ereingo** duzue soroan, baina uzta kaskarra bilduko, larrapoteak irentsiko baitu. Elizen arteko biblia

Zuk **ereindakoa** ez da ernetzen aurrez hiltzen ez bada. Elizen arteko biblia

Ongi **ereindako** haziak fruitu ematen dakiela sasi artean ere. Inazio Mujika Iraola

Neguko hilabeteak lurpean egin eta gero, eguzkiaren argitara itzuli zen Proserpina, landak eta baratzeak **ereiteko**. Joxan Elosegi

2 irud/hed

Iparramerikar tropek Vietnamgo hainbat lurralde okupatu zuten, lehergailuak **ereinez**. Joseba Sarrionandia

Usadioaren keinu zehatzez, papertto zuria zabaldu zuen, erdiko tolesdura desegin gabe, eta hortik, hauts zurixka bat **erein** zuen, artaz, karpeta gainera. Aingeru Epaltza

Fruitua biltzeko hazia **erein** beharra dago eta hor dago arazoa. Berria - Kultura

Erretiratu zirenean, alemanek zubiak bota eta minaz **erein** zituzten bazterrak. Koldo Biguri

Jainkosa zaharrek bezalaxe, gure hurritz andereak ere, hautsetan **erein** du bere maitemina. Patziku Perurena

Lurra Jainkoaren hitzez goldatuz, bedeinkaziozko fruitua dakarren biziaren hazia **erein** zuen. Askoren artean

Zeren osaba Joanikot izan baitzen ene arimaren lurretan libertatearen hazia **erein** zuèn gizona. Joan Mari Irigoien

Zalantza haziak **ereiten** ditiagu zalantzondoak biltzeko. Patziku Perurena

Bakea **ereingo** dut, mahastiak emango du bere fruitua, lurrak bere ekarria eta zeruak bere ihintza. Elizen arteko biblia

Gorrotoa **ereiten** ari direnek hausnarketa egin behar dute. Berria - Euskal Herria

Baina hik **erein** dezakek batasuna. Zuengan espirituzko ondasunak **erein** baditugu, gehiegi ote da zuengandik lurreko ondasunak jasotzea? Herria

Sorterrira itzultzeko gogo hori **erein** zuen gugan. Joseba Sarrionandia

Neska gazte bat aitzinean pasatu zait, agurtzeko irribarre goxo bat ene baitan **ereinez**. Piarres Aintziart

Ereindakoa biltzen ari dela ere ezin ukatu, aspaldi hasi baitzen pedalei gogor ekiten Baden Cooke. Berria - Kirola

Ezizenak goiz **ereiten** diren irainak dira, haurtzaro gordinean, iseka egiteko. Pako Aristi

Herioaren **ereiteko** tresneria moderno batekin munduko lehen gerlak, 14-18 arteko gerlak, zauritu, funditu, ezeztatu zuen berriz Europa. Michel Oronoz

Diruaren libertate edo korritu-behar orgasmatikoak eta merkatuen liberalizazio zeharoko edo globalak ikusi da ze miseria **erein** duen bazterretan, lehenaz gain Emaztea, semea... Marihuanak **ereindako** lanbro eztiaren artetik gogora ekarri ditu haien figurak, baina lausoak eta urrunak iruditu zaizkio, abokatu-bulegoa bezain urrunak. Iñaki Segurola

Bestelako Komunikazioa behetik landu eta **erein** behar da. Txema Ramirez de la Piscina

Haragizko gorputza **ereiten** da eta espirituzkoa pizten; haragizko gorputza baden bezala, espirituzkoa ere bada. Elizen arteko biblia

Harea udatiarrek botatako zaborrez **ereinik** zegoen. Joseba Sarrionandia

Metroko pasadizoak horrelako hiri batek soilik erdi ditzakeen freaky eta kutreez **ereinda** daude. Eider Rodriguez

3 (era burutua izenondo gisa)

Horra nola zirikatzen duten barealdi nabarra, non dauden etzanik alor **ereinak** oro andere gisako zantzu gaitzez txingarretan. Patziku Perurena

4 (era burutua hitz elkarteetan)

Eskandinavian ereiaroa seinalatzen zien urkiak: bere zarbatxoak lurrean tente iltzatuz seinalatzen baitzuten noraino zuten egina **erein**-lana. Pello Zabala

Eskualde apartatuetan **erein**-lan handiak egingo zituzten langiletzat eta segalaritzat aukeratu baitzituen. Jon Alonso

Gero uzta ona izango bazen, **erein** beharra zegoen lehen, **erein** eta itxaron. Pello Zabala

5 ***erein berri*** *(orobat* ***ereinberri*** *g.er.) izond* duela oso gutxi ereina.

Arto **ereinberria** bertan ustelduta galtzen zion. Pello Zabala

Norbaitek sua egin eta, sasitan zabalduz, gari metatua, gari heldua nahiz **erein berria** erretzen badu, egindako kalteak ordainduko ditu. Elizen arteko biblia

Egia esan, ozta-ozta **erein berria** zen. Juan Garzia

Ama ez da haurraren sortzaile, baizik eta **erein berri** den haziaren zaintzaile baino ez. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitara erein (3); **argitara erein argitaletxeak** (3); **artean erein** (3); **bat erein** (3); **erein ahal** (3); **erein argitaletxeak** (16); **erein argitaletxearen** (7); **erein argitaletxearen eskutik** (4); **erein argitaletxeko** (4); **erein behar** (9); **erein beharra** (3); **erein den** (4); **erein du** (3); **erein duen** (3); **erein edo** (4); **erein ere** (5); **erein eta** (27); **erein eta bildu** (3); **erein eta itxaron** (3); **erein euskadiko** (6); **erein euskadiko kutxa** (6); **erein ez** (5); **erein gabe** (6); **erein nahi** (4); **erein zituen** (3); **erein zituztela** (3); **erein zuen** (14); **ereindako hazia** (6); **ereindako haziak** (5); **ereingo duzue** (6); **eta erein** (15); **eta erein argitaletxeak** (3); **ez erein** (6); **ezer erein** (3); **garia erein** (3); **hazia erein** (16); **hazia erein zuen** (5); **haziak erein** (5); **hazirik ereingo** (3); **zuen erein** (3)

artoa ereiteko (9); **artoak ereiteko** (3); **dute ereiten** (3); **ereilea hazia ereitera** (3); **ereitea eta** (3); **ereiteko garaia** (3); **ereiteko garaian** (4); **ereiten ari** (9); **ereiten baitu** (3); **ereiten dena** (5); **ereiten dituzte** (4); **ereiten du** (4); **ereiten duen** (4); **ereiten duenak** (5); **ereiten hasi** (5); **ereiten zuten** (4); **eta ereiten** (5); **ez dute ereiten** (3); **garia ereiten** (3); **hazia ereiteko** (3); **hazia ereiten** (8); **hazia ereitera** (5); **haziak ereiten** (4); **lantzen eta ereiten** (3)

ereinaldi *iz* ereiten den aldia.

Gari-jotzeak mahats-bilketara arte iraungo du eta mahats-bilketak **ereinaldira** arte. Elizen arteko biblia

Erein goizean zeure hazia, eta arratsaldean ere ez egin opor, ez baitakizu **ereinaldi** bietan zein izanen duzun hoberena, ez eta bata bestea bezain ona izango den ere. Elizen arteko biblia

---

ereinarazi, ereinaraz, ereinarazten du *ad* ereitera behartu.

Lirio lorearen petaloak oso aberatsak dira antozianinaz; egitasmoaren aurrerabiderako, landa oso bat **ereinarazia** zuen lirioz, eta, petaloak bildurik, eguzkitan idorrarazi: niri zegokidan orain haien erauzkinak egin, untxiak haietaz elikarazi eta haien gluzemia kontrolatzea. Juan Garzia

---

ereinberri ik **erein 5**.

---

ereinotz **1** *iz* erramu zuhaitza *(Laurus nobilis)*.

Ereinotzaren usain sarkorra zen nagusi. Karlos Zabala

Gero eta hosto gehiago zegoen zimiterioko lurrean, gero eta lore gehiago; **ereinotzaren** usain mela zabaldu zen airean. Bernardo Atxaga

Hala-moduzko jaurtigaiak **ereinotzaren** adarren kontra lehertu dira mantso-mantso. Patxi Iturritegi

Barruko patioko **ereinotzeko** adar batean kokatua, zilipurdika ari zen Nofutur, barre algarak eraginez. Jon Muñoz

Kultur lanak, **ereinotz** eta edergarri guztiekin jantziko bagenu ere, begi-bistakoa izango luke, orduan ere, bere izaera komertziala. Anjel Lertxundi

Apolo heltzera zihoakionean Dafne **ereinotz** bihurtu zen. Gotzon Garate

Handik pixka batera, ziklopeen uhartean, leizezulo bat ikusi genuen itsasotik gertu; altua zen eta goialdean **ereinotzez** estalia zegoen. Juan Kruz Igerabide

Ospearen **ereinotzez** koroatua. Juan Garzia

Euren bihotzaren santutegitik erantzun santuago eta askoz ere ziurragoak eman zituzten Pitiak tripodetik eta Feboren **ereinotzetik** jaulkitzen dituen guztiak baino. Xabier Amuriza

Geroztik joko olinpikoetan garaile ateratzen zenari **ereinotzez** egindako koroia ematen zioten. Gotzon Garate

Pontxea ere prestatzen nion eztiz, berakatzez, limoiz, **ereinotz** eta sendabelarrez. Bego Montorio

Horrelaxe egiten zitiztean gerra kontseiluak La Cabañan, epaia emon eta **Ereinotzen** Zulora zuzenean. Koldo Izagirre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Patioaren erdian, **ereinotz** zahar bat; atze-atzean, bi artista-lantegi ondoz ondo. Jon Muñoz

Literaturaren ikuspegitik, haur-literaturan irabazia duen aitzindaritzaren **ereinotz** sinbolikoa aitortuko genioke, bere-berezko literatur balio duda-mudazkoen gainetik. Anjel Lertxundi

Inguruan palmondorik ez zegoenez, gehienok **ereinotz** loratuarekin joaten ginen elizara. Bernardo Atxaga

Egoera hori gertatzen denean, diru horrek kulturak bere baitan daraman loriazko ikurraren -**ereinotz** seguruenaren- aldeko apustua egiten du. Anjel Lertxundi

Aoki: **Ereinotz** japoniarra (aucuba japonica). Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan)

Lehenik, lehia-egun bihurtzen zuten, nork eramango **ereinotz** adar handiena eta loratuena. Bernardo Atxaga

Opinen **ereinotz** adarra ez zen Ubanberena bezain luzea, baina trinkoa zen. Bernardo Atxaga

Aurrera egin behar ote zuen **ereinotz**-koroa jasotzeko edo atzean gelditu behar ote zen iheslari koldarrei errieta egin eta zigorra paratzeko ikusteko zain. Jon Alonso

Celso Emilio izeneko Vigoko lorategietan dagoen poetaren bustoari **ereinotz** koroa ezarriko diote, eta baxuerliebe bat inauguratuko dute poeta hil zen etxean. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ereinotz adar** (4); **ereinotz adarra** (4)

---

ereintza **1** *iz* ereitea; ereindako lurra.

Ez duk denbora geldiaraziko; eta soroetako **ereintzak** zimelduko dituk, behiak ahulduko dituk ukuiluetan, ogia apurka-apurka gutxituko duk gizonen mahaietan. Koldo Biguri

Uzta, **ereintzaren** saria biltzen zuten Iparraldean, laborariak zenbateko esperantzaz itxaroten zion kontuan hartuta. Pello Zabala

Baina, gauzen sortzaile den natura bera izan zen **ereintzaren** eta txertakuntzaren lehen adibide, haziek eta ezkur zaharrek ernamuin pilo berria ematen baitzuten zuhaitzaren orpoan. Xabier Amuriza

Ez duk denbora geldiaraziko; eta soroetako **ereintzak** zimelduko dituk, behiak ahulduko dituk ukuiluetan, ogia apurka-apurka gutxituko duk gizonen mahaietan. Koldo Biguri

OGM horiek asmatu dituztenek badute gena bat ezarria ekei berrietan haren gatik, ez baitira hauk berriz ereiten ahalko, ez baitira bigarren **ereintzan** sortzen ere gehiago. Herria

Egin lan sei egunez, baina hartu atseden zazpigarrenean, baita **ereintza**-garaian eta uzta-aroan ere. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Ibilbidean izuaren **ereintza** utziko du, leherrarazteko prest, portu bakoitzeko umeen eskuetan. Berria - Mundua

---

ereite **1** *iz* lurra prestatu ondoren, bertan hazia barreiatu edo sartzea.

Lurrak diraueino, **ereiteak** eta uztabiltzeak, hotzak eta beroak, udak eta neguak, egunak eta gauak ez dute behin ere huts egingo. Elizen arteko biblia

Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen; zapaldu egin zuten eta txoriek jan. Elizen arteko biblia

-Eta hala ere, ez diote uzten **ereiteari** -esan zuen Legolasek-. Agustin Otsoa

Ostean ez dago **ereiterik**. Xabier Amuriza

Eta lana, hortxe zegoen haziaren aro izatearena, garia **ereitearena**. Pello Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arto-garien **ereite** kontuak, biak ala biak, ederki seinalatuak. Pello Zabala

Uztarekin bezalaxe, **ereite**-lanekin ere. Pello Zabala

Komeni dela **Ereite**-aroari erreparatuz, aste barruko egunen bat seinalatu, eta meza propio intentzio horietarako ematea. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lanak ematen zituen, bai, arto **ereite** horrek. Pello Zabala

Arbi **ereiteak**. Pello Zabala

Ostro irtete, arto **ereite**; ostro erortze, gari **ereite**. Pello Zabala

4 ***ereite aldi*** ereinaldia.

Gero lerra hadi haranzko aldera, gogora hadi lur guztia ireki dugula **ereite** aldi, hik gustua har dezanan noski. Juan Garzia

---

erekzio *iz* zakilaren, klitoriaren edo titiburuen gogortzea.

Odolaren presioagatik handitzen eta gogortzen da zakila, hau da, gertatzen da **erekzioa**. Luis Elberdin

Orgasmoaren ondoren, kitzikapen sexualaren eraginez gertatu diren aldaketa fisiologiko guztiak baretu egiten dira; **erekzioa**, hezetasuna, bihotz taupadak, arnasestuak, izerdia eta gorritasuna. Luis Elberdin

A zer gozamena **erekzio** harrigarriak eta hezetasun oparoak sortzen dituzten ezpainen sentsualitatea eta mihi jostariaren hezetasuna sentitzea. Luis Elberdin

Zenbat eta zakil-haria gehiago tenkatu, orduan eta **erekzio** harroagoa eragingo didazu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hezetasun intimoenak eta **erekzio** bihurrienak eragiteko. Luis Elberdin

25 eta 75 urte bitarteko milioi eta erdi gizonek **erekzioa** lortzeko arazo kronikoa dute. Berria - Gaiak

Erekzioaren disfuntzioa gaixotasun bat da berez, baina askotan beste gaitz larriagoen sintoma bat ere izan daiteke. Berria - Gaiak

---

eremaile ik **eramaile**.

---

eremaki ik **eramaki**.

---

ereman ik **eraman**.

---

eremangarri ik **eramangarri**.

---

eremita *iz* eremuan edo leku bazterrean bakarrik eta modu aszetikoan bizi den pertsona. ik**eremutar**.

Eremita batek edo fraile errariak utzi litzake ile bizarrak nahi adina luze eta zikin, jainkoagana luzatzen baitzaizkio beti. Patziku Perurena

eremitek beren izpiritua ernaltzeko pikoa jaten zuten erruz. Patziku Perurena

Kantu zaharrak aipatzen duen San Jose **eremita** desertuan gora. Berria - Harian

Gizaki arimak, umetxo batzuek iduri, gorputzetik ateraiak direla zeren eta maiz entzun edo irakurri baitute san Antonek ikusi zuela san Paulo lehen **eremitaren** arima itxura horretan aingeruek zerura eramaten. Piarres Xarriton

---

eremitiko *iz* eremitarena, eremitari dagokiona.

Frantziskok ontzat ematen du Ordenan bizitza **eremitikoa**; hala ere, bizimodu **eremitikoa** frantziskotar bizitzaren inspirazioa eta bizimoldea egituratzen duten hautapen praktiko handien argitan berrirakurtzen du. Askoren artean

Sabinako gotzaina gizon zuhur eta zentzuduna zenez, gauza askori buruz galdetu zion, eta bizitza monastiko edo **eremitikora** bideratzeko aholkua eman zion. Askoren artean

---

eremitorio **1** *iz* eremita bat bizi den tokia; ermita bat dagoen lekua.

Bere kargua utzi eta, perfekzio handiagoaren bila, anaiengandik **eremitorio** batera alde egin nahi lukeen Ministro kezkatuari Frantziskok esaten dio, asmo horiek ez direla Jainkoaren araberakoak. Askoren artean

Eremitorioa oso paraje malkartsuan, harkaitz eta baso artean, kokatua dago. Askoren artean

Eremitorioetan bizi ziren anaiek, ebanjelioan lehentasun osoa duena bilatu behar zuten: "Jainkoaren erregetza eta haren nahia betetzea". Askoren artean

Frantziskok dorre bakarti bat aukeratu zuen: barrualdea gangaz estalia zen eta bederatzi gela zituen, **eremitorioko** gelatxoen antzekoak. Askoren artean

Eseri ziren mahaian eta jaten hasi berriak zirela, **eremitorioko** atea jo zuten. Askoren artean

Erlijioso-bizitza **eremitorioan** eraman nahi duten anaiak izan bitez hiru, edo gehienez lau. Askoren artean

Edonon daudela ere, **eremitorioetan** nahiz beste bizilekuetan, gorde bitez anaiak inongo lekurik berentzat hartzetik edo lekuok inorengandik defendatzetik. Askoren artean

2 (izenondoekin)

Zure anaiak **eremitorio** pobre batean bizi dira gure herrialdean, eta bizi-proiektu honen arabera bizitzea erabaki dute. Askoren artean

Hil baino bi urte lehenago, La Verna mendiko **eremitorio** baztertura erretiratu zen, bere lagun-min anai Leonekin. Fernando Rey

Erretiro-etxeei ere aplikatzen zitzaien izena, Carceri izeneko Asisko Subasio mendiko **eremitorio** ospetsuak erakusten duenez. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Asko dira, izan ere, kontenplaziorako lekua aisia-leku bihurtzen dutenak eta arimen perfekziorako asmatutako **eremitorio**-biziera plazer-zulo. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anaien eremitoriora (4); **eremitorio batean** (5); **eremitorio batera** (3); **eremitorioan bizi** (6); **eremitorioan zegoela** (3); **eremitorioetarako erregela** (5); **eremitoriora eta** (3); **greccioko eremitorioan** (6); **greccioko eremitoriora** (3); **san urbano eremitorioan** (3)

---

eremu **1** *iz* lurraldea; hedadura; arloa.

2 250 m2-ko **eremu** bat atxikitzen du hiri elkargoak, hedatzeko mentura agertzen balitz. Herria

Berak ez du marrazten euren **eremua** ixten duen lerroa. Xabier Arregi

Belar artifizialeko 900 metro koadroko **eremu** bat. Berria - Kirola

2 hektareako **eremua** izango genuke biztanleko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

16 000 metro karratuko **eremua** salgai ezarriko dutela. Herria

20 futbol zelairen tamainako **eremua** suntsitzen dute orduko. Berria - Gaiak

Xiberta auzogunean, etxe-lur bat, **eremuz** ez batere handia, saldu zela inkantean miliun bat eta ehun mila eurotan. Herria

Hungaria, **eremuz** bederatzi aldiz Nafarroa, hamar miliun bizilagun. Herria

225 milioi biztanleko **eremu** honek, berak bakarrik, Ekialde Urruneko esportazioen %29 biltzen du. Koro Navarro

Hazparnek badu 7.750 Ha **eremu** eta huntarik %55 nahi lukete beiratu laborantxako lur bezala. Herria

Sagarnoa egitetik bizitzeko behar dira hamar hektara **eremu** landatu. Herria

Eremua eskas da Baionan eta inguru hurbilean bizitegi berrien eraikitzeko. Herria

Taxoare handitzeko **eremu** bat saldu du. Berria - Kirola

Filistearrak borrokatzetik itzultzean, esan zioten Sauli: "En-Gediko **eremuan** duzu David". Elizen arteko biblia

Sortaldeko **eremuan** Markinako hizkera izan da eredua. Koldo Zuazo

FARCen kontrolpeko **eremu** batean. Berria - Mundua

Hortik hurbil da Tabriz, munduko hiri hoberenetarik merkatariendako, Persiako erregeren **eremuetan**. Aurelia Arkotxa

Sukaldea, amatxiren **eremua** da. Ramuntxo Etxeberri

Vodkaren **eremuetatik** whiskiaren landetara gentozen. Edorta Jimenez

Kastillako **eremuetan** hamaika aldiz ibilia naiz, ene ameskerietan. Piarres Aintziart

Hirian dena prest zegoen jadanik, eta jendetza handia bildu zen, albistea Gondorko Erresuma osoaren **eremuetara** iritsi baitzen. Agustin Otsoa

Hendaia, Pausu-Behobia, Irun eta Hondarribia elkartzen dituen **eremua** baita ene eguneroko espazioa. Ana Urkiza

Dialektoak, hizkuntzaren **eremuaren** zatiketa arbitrarioak baizik ez dira. Isabel Arrigain

Zibilizazio baten desagertzea erregistratzen duen gertaera [...] gizarte zenduaren estatu unibertsalaren **eremua** okupatzea izaten da normalean. Iñaki Mendiguren

Europako Banku Zentralaren %2ko helburutik urrundu egin da euroaren **eremuko** inflazioa. Berria - Ekonomia

Akemenestar Inperioaren **eremu** izandakoaren bazter guztietan. Iñaki Mendiguren

Bakoitzak bere **eremuan** erantzukizun osoz aritu behar du prozesua abia dadin. Berria - Euskal Herria

Izan ere, Karunak kontrolatzen duen **eremua** gure behaketa gunetik at dago. Berria - Mundua

Ezberdintasun guziak barneratzen duen **eremua** da eskola, denei aukera berak eskaintzen dizkien egitura. Berria - Harian

Anartean Joanes, deus ez bailitzan, bere paralitiko aulkiaren **eremuan**, eskuak gurutzean, soa hodeietan eta aho zokoa habia, loeria saindu batean ito zen. Itxaro Borda

Denbora eta espazio neurgarriak baino haratagoko **eremu** batean dago gure baitako irudimenaren esparru misteriotsu hori. Anjel Lertxundi

Hark jotzen zuenean airea jabaldu egiten zen, eta oroimenak, bere argia pizturik, ahanzturaren **eremutik** alde egiten zuen. Felipe Juaristi

Trukeen **eremua** zabaltzeari esker haz daiteke ekonomiaren produktibitate globala. Koro Navarro

Horrek arazoak sortzen dizkie dolarraren **eremuetara** esportatzen duten enpresei. Berria - Ekonomia

A priori historikoen arabera artikulatutako enuntziatuen **eremuak** [...] ez dauka lautada monotono eta mugarik gabe luzatutakoaren itxura. Xabier Arregi

Izatez, ordea, **eremuz** kanpokoaren kontzeptua irudi finkoarentzat ere ongi egokitzen den arren, bada ezabaezinezko desberdintasun bat irudi finkoaren eta irudi mugikorraren artean. Josu Zabaleta

Atera zitekeen zenbaki negatibo baten erro karratua, zenbaki konplexuen **eremuan**. Jon Muñoz

Fonetika-fonologien **eremuan**, ahots esaten zaio ahoskorden dardarak sortzen duen hots uhinari. Lourdes Oñederra

Eremu hau enuntziatu efektibo guztien multzoaz osatuta dago. Xabier Arregi

Izendatzen zaion **eremuaren** eta mailaren arabera forma eta funtzio berezi bat hartuko du. Xabier Arregi

Tentsioa edo konpresioa jasan behar duten **eremuak** erraz ezagutzen dira hezur trabekularrean. Irene Aldasoro

Ene barne bizian Nafarroak hartzen zuen **eremu** gehiena, Bizkaiak ere leku handia zuelarik ene imaginarioan. Ana Urkiza

Aldia hitzak denbora du **eremu**, eta *aldea* hitzak espazioa. Iñaki Arranz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eremu mortu bat zegoen haien eta gainerakoen artean. Imanol Zurutuza

Asadabad herritik gertu erori zen helikopteroa, hain zuen ere, **eremu** menditsu batean. Berria - Mundua

Hegoaldeko lau **eremu** historikoetan lan gabezia emendatu da apur bat iraileko hilabetean. Herria

Nafarroan euskara **eremu** euskaldunean bakarrik da ofiziala. Berria - Harian

Printzeak oina **eremu** frantsesean sartu orduko, isildu egin ziren tiro hotsak. Koldo Izagirre

Ekialde Hurbila munduko **eremu** estrategiko nagusia da egun eta, horegatik, inork ez du nahi egungo mugak aldatzerik. Berria - Mundua

Infernuko suak erraustutako **eremu** mortua zirudien Mendizorrotzako berdeguneak. Berria - Kirola

Zinezko dela tristeziaren **eremu** mortuan luzaro bizirik irautea, bizipozaren iturriko urik edan gabe. Imanol Zurutuza

Hirugarren mailako sabai lauraino igo zen, Dorrearen mailarik garaienera: hogei bat yardako zabalerako **eremu** irekia zen, karelak inguraturik behealdean. Agustin Otsoa

Eremu zabal biluzia eskuin, ezker, aurrean. Piarres Aintziart

Eremu bereiziak sortzea proposatu du Kostunicak. Berria - Mundua

Urek hartu dute hor **eremu** handia, pentze eta landa frango estaliz, etxe batzuetarat ere sartuz, bereziki Azkainen, Portuko auzogunean. Herria

Lurreko **eremu** handi batean dagoen lurzoru aldapatsu eta malkartsuan ibiltzeko, hobeak dira oinak. Irene Aldasoro

Bilbotik mendebaleranzko **eremu** zabalean. Koldo Zuazo

Alde guztietan hesiz itxiriko **eremu** zabal baten erdian zegoen. Jose Morales

Kaltetutako zenbait **eremutara** iristea zaila gertatzen ari zaie Filipinetako Gobernuko zein gobernuz kanpoko laguntza erakundeei. Berria - Mundua

Auzo hura **eremu** narras eta txiro bat zela artean, etorkin saiatuen eta langile familien bizileku. Oskar Arana

Berdintasunaren bidean urratsak egiten ari diren arren, oraindik emakumeak gizonen aldean bazterturik daude, bai **eremu** pribatuan, bai publikoan. Berria - Harian

Zergatik ari dira gizonak hemen borrokan, **Eremu** Sakratuetan? Agustin Otsoa

Kafetegi bateko **eremu** neutrala hautatu genuen sinadurarik gabeko hitzarmena egiteko. Aingeru Epaltza

Planisferio batean adierazita ageri ziren loroen **eremu** geografikoak. Jon Muñoz

Hiria **eremu** librea da, liberalagoa, zabalagoa, argituagoa, eta herriak eta herri-koxkorrak berriz, murritzak, motzak, atzerakoiak, jauntxoaren eta apaizaren mendean luzaz egonak. Iñaki Segurola

Aditzena ere **eremu** emankorra da hitz luzeak bilatzeko ahalegin honetan. Iñaki Arranz

Bilakabide fonologikoen **eremu** prosodikoa. Lourdes Oñederra

Erabilitako hitzak, erabilpeneko arauak, adierazten duten **eremu** semantikoa. Xabier Arregi

Hiru **eremu** problematikotan banatu du Nagelek zientziaren azterketa logikoa: azalpen zientifikoa, kontzeptu zientifikoa eta zientzien nahi kognitiboen ebaluazioa. Askoren artean

Hor dago, era berean, ikusmenezko pertzepzioaren azterketa, behingoz besterik ez bada ere, arreta handiz **eremu** sinbolikoa ez baztertzen ahalegintzen dena. Josu Zabaleta

Palestina historikoko hiriburua «nazioarteko **eremu**» deklaratu zuen NBEk Palestina zatitu zuenean, 1947an. Berria - Mundua

Orai gaitzeko **eremua** bada dena garbitua hor muntatzeko auzogune berri bat. Herria

Gainazal berean **eremu** argiztatu batetik ilunpeko **eremu** batera igarotzen delako. Josu Zabaleta

Kontzeptuaurreko **eremuak** agerrarazten ditu diskurtsoaren erregulartasunak eta betebeharrak. garbi dago txanponaren erabilgarritasuna areagotu egiten dela zenbat eta **eremu** handiagoan izan erabilera legala. Xabier Arregi

Eremu erdaldun horretakoak ziren Nafarroako agintariak. Koldo Zuazo

Ikusiko baitituzte beren buruak **eremu** infinitu baten eta **eremu** ezerez baten artean kokatuta, zenbaki kopuru infinitu baten eta kopuru ezerez baten artean. Jon Muñoz

Makineria pisuaren laguntza behar duten zientziaren edo pentsamenduaren **eremu** handi-zabalak bezain maite zituen letra tiki-zirtzilen goldeaz lantzen diren alor apalak. Aingeru Epaltza

Gizona ozta-ozta ausartzen da Siberiako estepetan edo Asiaren erdialdeko lautadetan barneratzen; adoretsuenak ere atzera egiten du Afrikako basamortuetan, Amerikako zelaietan; bipilenak ere amore ematen du Australiako lurralde zabaletan, poloetako izotzezko **eremuetan**. Karlos Zabala

Paralaxia akats ñimiño batengatik [...] Lurraren **eremu** grabitatorioan sartuak zirenak. Patxi Iturritegi

Molekula batzuek dipolo elektriko bat daramate beren baitan, hots, ipar orratz ñimiñoak bezala jokatzen dute **eremu** elektriko batean. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Patrick Devedjian UMP-koak hauxe erran du mugaz gaineko harreman horien kargua duen **"eremu** antolakuntza" ministerioaz: "ez dut deusetarako ez den ministerio baten kargudun izan nahi". Herria

Aspaldi-aspalditik dago **eremu**-hesiketa bat, eta gaur bertan ere gaixoak eta eroak, pobreak bezalaxe, beren barrutietan bizi dira, beste jendearengandik bereizita. Bernardo Atxaga

Eremu kontzeptua, definitu dugun bezala (11-1) behintzat, historikoki definituta dauden irudi batzuetarako baizik ez da erabat egokia. Josu Zabaleta

Begi-ninia ixteak ez du pertzepzioa aldatzen begian sartzen den argi kopurua aldatzen delako, **eremu**-sakontasunaren aldetik gertatzen den eraginaren ondorioz baizik. Josu Zabaleta

Itxuraz aski bigarren mailakoa dirudien **eremu**-sakontasunaren puntu hori geroz eta garrantzi handiagoa hasiko da hartzen berehalaxe Comolliren testuetan. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ager soroa, alorra da, landa, lurra, lur-**eremua**, lurraldea, eskualdea. Askoren artean

PANek salatu du Gazako plana «Israelen konplota» dela, Zisjordaniako lur **eremu** handiak atxikitzeko. Berria - Mundua

Bi ur-**eremuren** artean estu-estu kokatuta dago hiria, itsasoaren eta Mariotis aintziraren artean. Jon Muñoz

Hiri-**eremu** goibel batean. Xabier Olarra

Hirietako industria-jarduerak landa-**eremuetara** eta hiri handietatik txikietara desbideratu zirelako. Koro Navarro

Aire **eremuarekin** batera kostako herrialdeen jurisdikzio **eremua** osaten dutenak. Berria - Mundua

Enpresek, berriz, baso **eremu** handiak erosten dituzte. Berria - Gaiak

Bidearen lehen zatia, Aveyron-eko Conques hiriraino, Aubrac-eko goi-**eremuetan** gaindi, frango menditsua da. Herria

Arazoa, beti bezala, muga ezartzerakoan dago, muga-**eremuetan** hain zuzen ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Denbora nola igaro, horixe da kartzela eta kontzentrazio **eremuetako** arazo handienetako bat. Jokin Urain

Goizeko-Izarra eta itsasontzi gehiago ere aritu zen jendea gerra **eremuetatik** kanporatzen. Jokin Urain

Lan-**eremua** ez zian eskas, gehienek txantajerako behar diren bi baldintzak betetzen baitituzte: sekretu aitorrezinak eta kontu korrente pollita. Aingeru Epaltza

Ez da erraza azken garaiotan adostasun eta akordio **eremu** zabalak ikustea Eusko Legebiltzarrean. Berria - Ekonomia

Nekazariek hondamendi **eremua** eskatuko dute. Alberto Barandiaren

Han, suntsipen **eremu** haren erdian, harritu egin zuen agerkunde ulertezin bezain jasanezin hark. Imanol Zurutuza

PANek Rafan duen gobernu **eremuan** ospitale txiki bat dugu, baina ez da gai egoera honetan sortutako kasuei aurre egiteko. Berria - Mundua

Iragan izan balu, Biarnon sartuko zen, eta Garrüzeko gazteluzainaren aginte-**eremutik** kanpo geldituko. Aingeru Epaltza

Ez dago adinik filosofiaren eragin **eremutik** kanpo. Imanol Unzurrunzaga

EAE lau zatitan banatu dugu: kostaldea, Kantauri barnealdea, trantsizio **eremua**, eta Ebro ondoko eskualdea. Berria - Harian

Angeluko Leclerc saltegiko kultur **eremuan**. Herria

Ameriketako Estatu Batuetako agintariekin eta ALCA Ameriketako Merkataritza **Eremu** Librearekin hainbat akordio sinatu ditu presidenteak. Berria - Harian

Barne merkatuko «prezio-gerrak» baztertu ditu, eta globalizazioari eta «enpresa askoren» deslokalizazioari neurria hartzeko, «Ekialdea» jo du «lehentasunezko negozio **eremutzat**». Berria - Ekonomia

Saltoki **eremu** handiek sektoreko lan baldintza onak jaitsi egin dituztela. Berria - Harian

Bardeako tiro **eremua**. Berria - Euskal Herria

Egingo nuke ez zituela maite soldaduen balentriak, ez militarrak ez bestelakoak, bai baitzekien balentria haiek militarren buruetako gudu-**eremuetan** bakarrik gertatzen direla. Anjel Lertxundi

Erabaki **eremuaren** auzian gure ikuspegia daukagu eta egituratzeko proposamena ere bai. Berria - Euskal Herria

Bachefores errauste planta itxi denetik, lurperatze **eremurik** ezean, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hondakinak Lapouyadera (Bordele, Gironde) eraman behar dituzte. Berria - Euskal Herria

Erietxe-**eremuak**, esaterako, ez du aldagaitza iraun, diskurtso klinikoak bera laborategiarekin harremanean jarri ostean. Xabier Arregi

Beste batzuek, aldiz -Gregek bezala tumor izugarri handiak dituztenek-, beste hirugarren lesio-**eremu** bat izan ohi dute, kortexaren barnealdean. Xabier Olarra

Tradizioa da, bestalde, idazle batek aurki dezakeen askatasun-**eremurik** bikainena. Anjel Lertxundi

Ikuspen-**eremuaren** aldaketa etengabeak halako fluxu gisako bat eragiten digu erretinan. Josu Zabaleta

Etengabeko harreman bat behar zuen, ikus-**eremuaren** alde bakoitzaren eta bere inguruaren arteko konparazio bat, sintesi orokor hartara iristeko. Xabier Olarra

Estropada **eremua** itsaso zabalean egongo da oraingo honetan. Berria - Kirola

Ekintza **eremuen** finkatze praktikoa, egitura instituzional baten premiaren azalpena. Itxaro Borda

Fonologia ikerketa **eremu** bizia izan da azken urteotan. Lourdes Oñederra

Enuntziazio-**eremuaren** konfigurazioak aldi bereko existentzia erak dakartza berarekin. Xabier Arregi

Proposizio batek erreferenterik duen ala ez esan ahal izateko, jakin beharra dago zeri dagokion enuntziatua, zein den bere korrelazio-**eremua**. Xabier Arregi

Aplikazio-**eremu** zehatzagokoak. Xabier Arregi

Litekeena da, noski, harreman hauek guztiak aztertzea gai modura hartu gabe enuntziazio-arloa bera, hau da, enuntziazio-funtzioa gauzatzen den koexistentzia **eremua**. Xabier Arregi

Deskribatzen dira diskurtso-**eremu** mugatuetan, eta ez zaizkie aitortzen hasieran hedapenerako ahalbide mugagabeak. Xabier Arregi

Honela ikusten dugu galdera-**eremu** bat zabaltzen dela, galderon artetik batzuk ezagunak zaizkigularik eta hauen bidez historiaren era berri honek bere teoria propioa mamitzen ahalegintzen da. Xabier Arregi

Azkenik "biblioteka" edo dokumentu-**eremua** deitu ahal izango genukeena. Xabier Arregi

Horietaz gainera, badira beste sinbolismo asko ere, baina ez dute guztiek horien balio-**eremu** berbera. Josu Zabaleta

Eragin-**eremu** berezi bana sortu da munduko hiru botere ekonomiko handien inguruan (Estatu Batuak, Europar Batasuna eta Japonia). Koro Navarro

Amodio **eremu** suntsitua nintzen, hautsezko pentoka, zerutik isuri euri nitrikoa, belarrak berak ukatzen zuen lurra. Itxaro Borda

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Angeluko kontseiluak PLU hiriko **eremu** antolaketa plan berria ontzat eman du joan den osteguneko bilkuran. Herria

6 basamortua.

Emaguzu hazia bizirik iraun dezagun eta gure lurrak **eremu** bihur ez daitezen. Elizen arteko biblia

Emaguzu hazia bizirik iraun dezagun eta gure lurrak **eremu** bihur ez daitezen. Elizen arteko biblia

Zuen lurraldea **eremu** bihurtuko dut eta zuen hiriak hondakin. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

akordio eremu (5); **ameriketako merkataritza eremu** (5); **arte eremu** (6); **arteko eremu** (7); **azterketa eremu** (5); **babes eremu** (6); **baina eremu** (7); **baino eremu** (9); **bat eremu** (7); **baten eremu** (6); **bere eremu** (10); **beste eremu** (51); **beste eremu batean** (8); **beste eremu batera** (5); **beste eremu batzuetan** (7); **beste eremu batzuetara** (5); **bi eremu** (17); **da eremu** (22); **da eremu horretan** (5); **dagoen eremu** (10); **dauden eremu** (6); **dela eremu** (7); **delako eremu** (5); **den eremu** (26); **den eremu batean** (7); **dira eremu** (16); **dira eremu horretan** (5); **diren eremu** (10); **ditu eremu** (8); **dituen eremu** (8); **du eremu** (24); **duen eremu** (23); **dute eremu** (11); **duten eremu** (8); **edo eremu** (8); **egiteko eremu** (5); **erabaki eremu** (5); **ere eremu** (12)

eremu aske (5); **eremu asko** (5); **eremu askotan** (10); **eremu bakarra** (9); **eremu bakoitzean** (9); **eremu bat** (106); **eremu bat izan** (5); **eremu batean** (79); **eremu baten** (16); **eremu batera** (19); **eremu batetik** (7); **eremu bati** (8); **eremu batzuetan** (11); **eremu batzuetara** (6); **eremu berde** (5); **eremu berean** (15); **eremu berezi** (6); **eremu berri** (17); **eremu berria** (6); **eremu berriak** (12); **eremu bihurtu** (6); **eremu bihurtuko** (7); **eremu edo** (8); **eremu erdaldunetan** (5); **eremu eszeniko** (7); **eremu eszenikoa** (9); **eremu eta** (16); **eremu euskaldunean** (7); **eremu euskalduneko** (7); **eremu ez** (16); **eremu ezberdinetan** (10); **eremu gehiago** (8); **eremu guztietan** (29); **eremu guztietara** (8); **eremu handi** (9); **eremu handia** (9); **eremu handiak** (18); **eremu handiko** (5); **eremu hartan** (10); **eremu hau** (11); **eremu hauek** (5); **eremu honetako** (5); **eremu honetan** (11); **eremu hori** (52); **eremu horiek** (12); **eremu horien** (5); **eremu horietako** (5); **eremu horietan** (19); **eremu horren** (23); **eremu horretako** (5); **eremu horretan** (95); **eremu horretatik** (6); **eremu hortan** (11); **eremu hura** (7); **eremu jakin** (11); **eremu juridiko** (7); **eremu latz** (5); **eremu lau** (5); **eremu librea** (8); **eremu magnetikoa** (5); **eremu mistoan** (10); **eremu mistoko** (5); **eremu mortu** (7); **eremu oso** (10); **eremu osoa** (13); **eremu osoan** (19); **eremu politiko** (8); **eremu politikoan** (9); **eremu pribatua** (5); **eremu pribatuan** (10); **eremu propioa** (5); **eremu publiko** (5); **eremu publikoa** (6); **eremu publikoak** (6); **eremu publikoan** (10); **eremu sakontasuna** (7); **eremu sakratu** (6); **eremu txiki** (11); **eremu txikian** (8); **eremu ulergarri** (5); **eremu urdina** (5); **eremu urriko** (20); **eremu urriko eta** (7); **eremu zabal** (41); **eremu zabal bat** (7); **eremu zabal eta** (5); **eremu zabala** (25); **eremu zabalago** (5); **eremu zabalagoa** (10); **eremu zabalak** (15); **eremu zabalean** (17); **eremu zabaletan** (11); **eremu zehatz** (7)

eta eremu (110); **eta eremu horretan** (7); **europako eremu** (5); **euskalkiaren eremu** (7); **euskalkiaren eremu osoan** (6); **ez duen eremu** (5); **gabeko eremu** (13); **hainbat eremu** (7); **hektara eremu** (5); **hiru eremu** (10); **hondamen eremu** (10); **ikusmen eremu** (6); **itsas eremu** (6); **koadroko eremu** (6); **kontzentrazio eremu** (11); **lan eremu** (20); **landa eremu** (6); **lur eremu** (55); **lur eremu bat** (6); **merkataritza eremu** (6); **metro koadroko eremu** (5); **nafarroako eremu** (10); **oso eremu** (16); **zen eremu** (15); **zenbait eremu** (6); **zuen eremu** (16)

alimaleko eremuak (5); **arteko eremua** (5); **bardeako tiro eremua** (10); **bere eremua** (16); **dagoen eremua** (8); **den eremua** (16); **diren eremuak** (8); **duen eremua** (17); **duten eremua** (7); **duten eremuak** (5); **ekintza eremua** (5); **eremua baino** (5); **eremua da** (28); **eremua du** (6); **eremua ere** (10); **eremua eta** (16); **eremua ez** (9); **eremua gero** (5); **eremua gero eta** (5); **eremua hartzen** (10); **eremua izan** (9); **eremua zabaldu** (8); **eremuak eta** (8); **eta eremua** (8); **eta eremuak** (10); **gabeko eremua** (9); **hektarako eremua** (6); **inguruko eremua** (7); **interpretazio eremua** (6); **karratuko eremua** (11); **koadroko eremua** (8); **lan eremua** (11); **lur eremua** (27); **lur eremuak** (12); **metro karratuko eremua** (11); **segurtasun eremua** (7); **tiro eremua** (16)

bakoitza bere eremuan (5); **bere eremuan** (25); **beste eremuetan** (5); **dagoen eremuan** (7); **dauden eremuetan** (7); **den eremuan** (13); **den eremuetan** (6); **diren eremuetan** (9); **duen eremuan** (13); **duten eremuetan** (6); **eremuan bizi** (7); **eremuan ere** (13); **eremuan eta** (11); **eremuan izan** (7); **eremuan kokatzen** (9); **eremuan lan** (5); **eremuan sartu** (14); **eremuan sartzen** (14); **eremuan zegoen** (6); **eremuaren barruan** (6); **eremuaren eta** (6); **eremuaren zati** (6); **eremuari dagokionez** (7); **eremuetan bizi** (9); **eremuetan bizi diren** (6); **eremuetan ere** (7); **eremuetan eta** (5); **eremuetan sartu** (5); **euroaren eremuan** (14); **hizkuntzaren eremuan** (6); **ikusmen eremuaren** (9); **izeneko eremuan** (7); **kontzentrazio eremuetan** (14); **lan eremuan** (11); **landa eremuan** (5); **landa eremuetan** (5); **legearen eremuan** (6); **lur eremuan** (10); **lur eremuaren** (7); **lur eremuen** (5); **lur eremuetan** (5); **lurralde eremuan** (5); **nekazaritza eremuetan** (6); **tiro eremuaren** (5); **zen eremuan** (6)

bere eremura (5); **bi eremutan** (8); **donostia euroaren eremuko** (5); **eremuko erabilera** (5); **eremuko erabilera askotako** (5); **eremuko zentro** (5); **eremura eraman** (11); **eremura joan** (7); **eremutan banatu** (5); **eremutik atera** (8); **eremutik kanpo** (17); **eremuz kanpo** (6); **eremuz kanpoa** (6); **eremuz kanpoko** (6); **eremuz kanpokoa** (6); **euroaren eremuko** (41); **hainbat eremutan** (17); **hiru eremutan** (12); **landa eremuko** (18); **landa eremuko erabilera** (5); **landa eremuko zentro** (5); **zein eremutan** (9)

---

eremuka 1 *adlag* eremuen arabera.

Hartara, diagnosi berezituak egin dituzte, **eremuka**, «sektore bakoitzari buruzko irakurketa xehea egiteko aukera eskaintzeko». Berria - Harian

Ekarpenak jaso: **Eremuka** egindako diagnosiei ekarpenak egiteko aukera zabalduko dute, eta bide batez, Gazte Kontseiluaren balizko funtzio zein antolamenduaren inguruko eztabaida bideratu nahi dute. Berria - Euskal Herria

2 *eremukako izlag* eremuen araberako.

Diagnosia: Eremu bakoitzean lan egiten duten elkarte, mugimendu zein norbanakoen artean eztabaida bultzatuz, **eremukako** egoeraren azterketa bideratzea dute helburu. Berria - Euskal Herria

---

eremutar *iz* eremuan edo leku bazterrean bakarrik eta modu aszetikoan bizi den pertsona. ik**eremita**.

Bizi ziren gizartea ukatzen zuten matxinatuak izan zirela **eremutarrak**. Koldo Izagirre

Barruko zolagune hori bilatzen zuten bi mila **eremutar** bere zuzendaritzapean jarri ziren. Joan Mari Lekuona

Guk ordea nahiago genuke jakin zer patu eduki zuten azken hauek, erregina batek, amodioaren amodioz, atera ote zuen **eremutarra** bere eremutik, dontzeila, basoan hurrengo zaldun galduaren zain gelditu ordez, ez ote zen mundutik barna abiatu gizon baten bila. Jon Alonso

Heroiez ari garenez, aipa ditzagun adibide gisa Mahai Biribileko zaldunek edo Graal Santuko zaldunek **eremutar** jakintsuekin edo bidera ateratzen zitzaizkien dontzeila misteriotsuekin izaten zituzten topaketak. Jon Alonso

Badago **eremutar** kapusaidun bat, badiaren sarreran jesarria, harkaitz helezin batean, besoak zabalik, zeinak, zerua urdin ala trumoitsu egon, itsasoa bedeinkatzen edo marinelak gaztigatzen ari dela iduri duen. Koldo Izagirre

---

eremutxo *iz adkor* eremu txikia.

Dagoen edo bizi den **eremutxoan** eroso ez dabilen ipurterrearen biografia iristen zait haren jarrera nabarian. Pako Aristi

---

ereserki 1 *iz* hotsandiko kanta, eskuarki aberriari eskainia. ik **himno**.

Beethovenen Alaitasunaren **Ereserkia**. Berria - Harian

Enrique Ugartek urtemugaren **ereserkia** konposatu du, eta hura entzungo da, beste herri abesti askoren artean, Euskal Herria plazan. Berria - Kultura

Amaitu, berriz, San Ignazioren **ereserkiarekin** amaitu zuten. Berria - Euskal Herria

Gomutan dut, txikitan, amamak Athleticen **ereserkia** kantatzen zidala. Berria - Kirola

Kataluniako bazter guztietan elkarretaratzeak egingo dituzte udaletxeen aurrean, nazioaren **ereserkia** kantatzeko. Berria - Mundua

Hiru aldiz entzun du bere herrialdearen **ereserkia**: 1.000 eta 1.500 metrokoan eta 5.000 metro txandakakoan. Berria - Kirola

Denboraldi honetan, Maragall joan izan denean, Kataluniako **ereserkia** jo izan dute partidaren aurretik. Berria - Kirola

Errusiako **ereserkia** hamaika aldiz entzungo da gaurtik igandera Moskuko Olinpiar Kirol Jauregian. Berria - Kirola

Hala dio D'Annunziok Italiako Legioarentzat idatzi berri duen **ereserkiak**: "Luze-zabalean izango gara berriro Istriaren jabe, Italiako haragi eta odol baita, eta Fiumerena, Dalmazia, Zara eta Polarena. Berria - Kultura

Frantziako Konstituzioaren bigarren legea, Frantziako herritar guztientzat hizkuntza, bandera eta **ereserki** bakarrak derrigortzen dituena. Hasier Etxeberria

Prestakizun-lanari ekin nion: **ereserkiak** eta laudoriozko hitzaldiak, goraipamenezko klake-dantza, Pamelaren amultsutasun gogoangarriaren laudorio luze-luzea. Oskar Arana

Ereserki horiek sekula idatzi diren zozokeriarik handienetakoak dira, baina baneukan gutxienez astean behin birikei eragiteko aukera. Oskar Arana

Hamaikagarren aldiz, plaza zabaleko bazter guztietan paraturiko bozgorailuek *Horst Wessel* **ereserkia** aireratu zuten zalapartan. Alberto Ladron Arana

American skin izeneko bere kantua arrazakeriaren eta poliziaren bortxakeriaren kontrako **ereserki** bihurtu baita. Harkaitz Cano

Musika-bandak *Jainkoak gorde beza erregea* **ereserkia** jo zuen, Union Jack bandera zutelarik atzean airean hegaldaka. Mirentxu Larrañaga

Banda, Garibaldiren **ereserkia**, Pepponeren mintzaldia eta "Herriaren Etxea" delakoaren lehen harria jartzea. Koldo Biguri

Orkestra txiki baina soinu oneko batek britainiarren **ereserkiarekin** hasi zuen saioa, *God save the Queen* joz. Felipe Juaristi

Ereserki bat prestatu zuten; jendeak buruz ikasi eta eraitsitako harresien gainean kantatu zuen. Askoren artean

Donostiako beste olerkari guztiz ezagun batek ere, Juan Bizente Etxegaraik, ondu zuen **ereserki** bat 1813ko abuztuaren 31n izandako gertaera izugarriak gogoratzeko. ez zen kanpai-hotsik izango, eta ez zuten **ereserkirik** kantatuko. Askoren artean

1864an, artean ere hiria harresiak eraisteko lanetan buru-belarri sartuta zegoela, trena zetorrela eta festaz, konpartsaz eta **ereserkiz** ospatzeko prestatu zen Donostia. Askoren artean

Lluis Llach-ena hartu behar genuke **ereserkitzat** : zuk bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan... ikusiko duzu nola nola laster eroriko dan. Joxerra Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ereserki luze bat da, Donostiaren iraganeko gertaera askoren aipamena dakarrena. Askoren artean

Denetarik kantatzen dugu, baina badugu **ereserki** kutun bat: Jose Angel Irigarairen "Zortearen kolpeak", Benito Lertxundik sortu zion doinuarekin. Juan Luis Zabala

Umilazioak eta irainak: polizia taldea goraipatuz oihukatzera behartzea, **ereserki** faxistak abesaraztea, sexu arloko umilazioak. Berria - Harian

Doinu mutu hura -mi-re-do-do-do-sol-do-re-mi-do- "Cara al sol con la camisa nueva" bihurtu zen, inperio berri bat sortu nahi zutenen **ereserki** gudazalea. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure **ereserki** nazionala ikasi nuen: [...]. Juan Kruz Igerabide

Ereserki bedikoak lehenagokoak dira grezierazko testu zaharrenak baino. Isabel Arrigain

Pentsatu nuen ahanztura dela gizakiaren hatsik ohikoena, eta argia malko desolatu bat besterik ez dela, noragabe doana, isiltasunera, edota, agian, hilotzek kantatzen duten **ereserki** izoztura. Karlos Linazasoro

Italiako **ereserkian** kantatzen da. Fernando Rey

Eskua aho aurrean tronpeta moduan jarrita Amerikako **ereserkia** jotzen ari ote zen iruditu zitzaidan. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan)

Musika ere jartzen zuten iragan ekainera arte 38. paraleloan: gerra **ereserkiak** iparraldean, eta demokrazia eta askatasunaren aldeko himnoak hegoaldean. Berria - Mundua

Lehendik ere eginak zituen PPk antzeko kritikak, Kataluniako *Els Segadors* nazio **ereserkiaren** inguruan. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
duen ereserkiak (3); **ereserki bat** (5); **ereserki nazionala** (5); **ereserkia entzun** (4); **espainiako ereserkia** (4); **kataluniako ereserkia** (4)

---

eresi 1 *iz* kanta; elegia.

Hau **eresia** da, eta **eresi** bezala kantatu behar da. Elizen arteko biblia

Erregeak **eresi** hau egin zuen Abnerren omenez: "Hain zentzugabeki behar al zuen Abnerrek hil?". Elizen arteko biblia

Gizaseme, kanta **eresi** hau Egiptoko errege faraoiari buruz: "Lehoikumea ematen zenuen nazioen artean, baina uretako krokodiloa bezalakoa zara: plisti-plasta zabiltza zeure ibaian, hankekin urlasterrari eragin eta ura zikintzen duzu". Elizen arteko biblia

Hileta joko dute zuregatik, **eresi** hau kantatuz: "Nor Tiroren pareko, itsas erdian gotorleku zenaren pareko?". Elizen arteko biblia

Asperges me Domine antzinako latinezko **eresitik** . Xabier Olarra

Rainer Mª Rilke, *Duineser Elegien*/Duinoko **Eresiak** . Jose Angel Irigaray

Kawabatak Japonia zaharraren **eresiak** egitera mugatu zuen bere burua gerraren ostean. Ibon Uribarri

Etxepareren mende ahituko Desesperatuaren **Eresia** . Itxaro Borda

Eresi [...]: bertsozko konposizio bat, zeinean, umorezko metodoetako bakar bat erabili gabe, idazlea saiatzen den irakurlearen gogoan lurjotzearen mailarik behekoena sortzen. Xabier Olarra

*Marseillaise*rekin hasi ziren eta milaka ahotsek kantatu zuten askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren aldeko **eresi** hura. Felipe Juaristi

Lekuonaren poesia **eresi** bat da, ez da barne-adierazpen soila; antzinatik datorren kantu zaharraren hotsik sakonenak dakarzkigun arnasgunea da. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ezkerreko ukabila burutik gora altxatu nuen, itxirik, eta kasurako nekien **eresi** epiko bakarraren lehen notak kantatzen hasi nintzen. Jon Alonso

Andetan ipintzen zuten txepetxa, eta prozesioan eramaten kanposantura, han hilobia egin eta lur emateko, hiletako **eresi** ilunak kantatuz. Patziku Perurena

Mutiko gaxte bat jarri da oholtzan belauniko, eta, **eresi** ezinago hunkigarri eta triste batez errepikan, behin eta berriro honetara kantatu du. Txillardegi

Amodiozko **eresia** baino gaztiguzkoa da. Itxaro Borda

Urmael lokaztuetan antigoaleko **eresiak** kantatzen dituzte igelek. Koldo Biguri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eresi Bertsook Grayren *Elegy Written in a Country Churchyard* izeneko Elegiaren hasierako bertsoaren parodia dira. Xabier Olarra

Niko Etxart kantari eta **eresi** egileak eta Kepa Fernandez de Larrinoa gizadi ikerlariak. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Armeniarren eliza otoitzak; arabiarren poesia; greziarren negarra; sefardien erbeste **eresiak** . Felipe Juaristi

Egia da "La chanson de Roland" gudu **eresia** sortu dela Orreagako gudu galtze horren ondotik. Herria

Bi barruotatik serora otoitz-egileen erregu- **eresi** fin errepikakorrak hedatzen ziren nekagaitz aire epelean. Txillardegi

Ezkon **eresien** laguntzaz. Karlos Linazasoro

Inork entzungo ez zituen hil **eresi** batzuk. Jon Muñoz

Egiptoko erregeagatik hileta- **eresia** . Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eresi bat (3); **eresi hau** (5); **eta eresi** (3)

---

ereslari *iz* musikalaria.

Poztekoa da garai horretako eliz musika (XIX-XX hasiera) kontzertuetan entzutea, oso lan onak baitaude, eta zer esanik ez denbora horretako euskal **ereslarien** lanei buruz ari bagara. Berria - Kultura

Hautu ederra da: alde batetik, Euskal Herriko bi kantari-musikari, Maddi Oihenart eta Kepa Junkera, bainan ere Kongoko erresumako Lokua Kanza, gitarra joile, **ereslari** eta kantaria, eta Keyvan Chemirani, Iraniako perkusio joilea. Herria

---

erestaldi *iz* kantaldia.

Zaunka urrunak entzun zituen, igelak kroak kroak entzun zituen, kilkerren **erestaldia** , eta geroago, gaueko hamarrak edo hamaikak aldera, tejabana gaineko enborretan hontzuria pausatuko zen seguru asko, eta hontzuriaren intziri ikaragarria entzungo zuen. Joseba Sarrionandia

---

ereti *iz* abagunea, aukera.

Hori, egia da, kredo patriotiko espainol hori, edozein toki eta **eretitan** errezatzeko prest, zuk ez daukazu, bestela ez zenuen dudatuko. Joxe Azurmendi

Poztu egin nintzen, Maisuarekin egoteko **eretia** banuela-eta, hari egiteko nituen itaunak egiteko prest. Edorta Jimenez

Hona nola hirurok idatzi ziren, **eretiak** eta urteak: [...]. Joxe Azurmendi

---

eretz *iz ipar* aldea, alderdia.

Eretzean züen, gaztelarrekin (castellanoekin), gipuzkoar kapitain bat, Iñigo Loiolakoa. Herria

Sintesia azkar horren **eretzean**, Queheillek aldiz hartü dü analisiaren bidea, xeheki erakutsiz eüskararen aldeko arrazu handien elibat. Herria

Lehen mustraka egin dügü neskenegün arratsean, urtarrilaren 10ean, Mauleko sühiltzaleen egoitza ohian, eliza gibelean, eskola püblikoaren **eretzean**. Herria

Ez baitzien karabineruen **eretzian** semia gezurtari agertarazi nahi, gerokoain gatik, badakixu, Borderre, biharamunian, beztitzen duxu beltzez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ideia egokiaren eta ezegokiaren arteko ezberdintasunari dagokionez, 35. Proposiziotik argi dator, alabaina, lehenaren **eretzean** bigarrena dagoela izatearen aldera ez-izatea dagoen bezala. Piarres Xarriton

Bena gü gira, euskaltzainak, zorretan, eüskara Nafarroa garaiko zola-zolan arrapizten düen aitama eta irakasle haien **eretzeko**, zor handitan. Herria

---

ergaraitar *izond/iz* Ergaraikoa, Ergarairi dagokiona.

Jean Michel Jaureguiberry **Ergaraitarra** eta Valérie Berdoulat Urruñarra. Herria

Fabien Catoire paristarra eta Marie Louise Daniel **ergaraitarra**. Herria

Ttikian **Ergaraitar** gero Amoztartu. Herria

---

ergatibo *iz* zenbait hizkuntzatan, iragankorrak-edo diren aditzen subjektua markatzen duen kasua edo atzizkia.

Euskararen berezitasuntzat hartuak izan diren **ergatiboari** edo deklinabide mugagabeari. Iñaki Segurola

Horrela, denek orain badakite nor den Xalbador, zer den **ergatiboa**, eta zonbat probintzia diren Euskal Herrian. Menane Oxandabaratz

Ez, Marta, **ergatiboa** falta zaio honi. Eider Rodriguez

Nahikoa lan bazuen gizajoak **ergatiboak** eta adizkiak gobernatzen. Joxerra Garzia

Hitz bati esaldian funtzioa ematen dioten kasu marka ezberdinek ere bat etortzen dira batzuetan: *hizkuntzak* (absolutu plurala, **ergatibo** singularra, **ergatibo** mugagabea), *Eibarren* (inesiboa, genitiboa). Iñaki Arranz

Mendebalean, erdialdean eta euskara nafarraren eremu gehienean, **ergatibo** plurala *-ak* izan ohi da. Koldo Zuazo

---

ergel **1** *izond/iz* zentzu edo adimen txikikoa, zentzugabeki mintzatzen edo aritzen dena. ik**burugabe; zozo**. ant **zuhur**.

Mespreza itzazu ama **ergel** baten errieta txepelak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bi morroi **ergel** eta indartsu haiek zutik zeuden ate banaren aurrean. Jose Morales

Ondo egongo litzateke ile-zaku **ergel** handi horrek bakean utziko balu! Iñaki Mendiguren

Gerra garaian arazo dexente izan zuen sailkapen hori zela-eta: jeneral **ergel** bat **ergela** zen Turing-entzat, kargua gorabehera. Fernando Morillo

Esan dezaket, sorkaririk **ergelenetakoa** dela gizakia. Patziku Perurena

Horrelakoxe sariak esleitzen zaizkie gizon **ergelei**. Oskar Arana

Ilehoria eskarmentu handikoa zen, eta hor barrena eramaten ninduen ikusaraztearren zer gizon **ergel** arraza dagoen munduan. Pello Lizarralde

Beti iruditu izan zait esnob **ergel** bat. Oskar Arana

Lepo luze baten gainean kokaturik, buru **ergel** bat, kapela grotesko bat apaingarri duela. Xabier Olarra

Ezin zuen onez eraman, burgoia, berekoia, **ergela**, eta harroputza iruditzen zitzaion. Josu Zabaleta

Aristotelesen arabera, munduan izan den geometrarik bikainenetariko bat zen Hipokrates, baina gainerakoentzat -jarraitu zuen- "tentela eta **ergela**" zen. Jon Muñoz

Ergela nintzen, inozo hutsa. Koro Navarro

Ez da batere **ergela**; aitaren batean aditzen du dena. Mirentxu Larrañaga

Ez ziren **ergelak**, eta **ergelak** zirenean ere, disimulatzen saiatzen ziren. Berria - Mundua

Hi bai haizela idazkari erdi **ergela**! Bernardo Atxaga

Ezin dut sinetsi zein **ergela** naizen. Oskar Arana

Bai, **ergela** izan naiz eta oso oker jokatu dut. Elizen arteko biblia

Henrike esker txarrekoa izaten ahal zen sariak emateko tenorean, baina ez **ergela** izendapenak egitean. Aingeru Epaltza

Gogoratzeko ahalmena dugunok **ergelak** garela diote memoriarik ez dutenek. Mikel Hernandez Abaitua

Nor izango da hain **ergel** eta itsu, egia nabarmena ez aitortzeko? Askoren artean

Ez zaitugu errege nahi, hitz motela baitzara, sinplea eta **ergela**. Askoren artean

Horrelakoak, ezbairik gabe, edozenbat egiten dituzte ezjakinek, jakintsuen burla eta haserrerako, eta eroek **ergelen** eskandalurako. Imanol Unzurrunzaga

Jakintsu usteko edozein **ergelen** maiseaketa-xedea izateko. Xabier Kintana

Ergelek sinetsiko dute, gaiztoek sinesteko itxurak eginen dituzte. Jon Muñoz

Ergela ere, ahoa itxi eta isilik egoten bada, burutsu eta zuhurtzat hartzen dute. Elizen arteko biblia

Bazekiat, **ergela**, bazekiat! Harkaitz Cano

Gelditu, gelditu, **ergel** hori! -egin zion oihu Txitxikovek Selifani. Jose Morales

Entzun ezak, **ergel** horrek, hirekin ari nauk eta! Jose Morales

Esadazue, **ergel** ez besteok, zergatik noa biluzik? Koldo Izagirre

Ergela ez bestena! Jose Morales

Hi bai **ergela**, Sergei. Jose Morales

Ez nazak **ergeltzat** hartu. Jon Muñoz

Bortxakeriak zuhurra ere **ergel** du bihurtzen, eta eskupekoak bihotza usteltzen. Elizen arteko biblia

Ergelenari ere gogoratuko zitzaion ateraldi zuzenagorik. Aingeru Epaltza

Ergelen aurreirizitiak mesprezatzen dituen gizon zentzuduna **ergelen** etsai bihurtzen da ezinbestez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Milioi bat txororen jakintza, **ergelak** adierazia. Xabier Olarra

Liburuek ez dituzte hilak berpizten; ez dute bihurtzen, ez **ergela** zentzudun, ez burumotza buruargi. Jon Muñoz

Gurrea, nire manupera ikastun ibilitako **ergel** hantuste bat. Aingeru Epaltza

Ergel miserable honi sabelean ostikoka emango zioat bestela. Josu Zabaleta

Barka iezaiozu zure aita **ergel** ahobero honi. Oskar Arana

Badirelako indartsuak eta ahulak, maltzurrak eta **ergelak**. Juan Garzia

Ergel hutsa nauk!", zioen Txitxikovek bere artean. Jose Morales

Ergel gaixoa! Josu Zabaleta

Nire ustez M. Praz bezalakoak **ergel** samarrak dituk. Mikel Hernandez Abaitua

Ezinezkoa baitzen puntu ez-egonkor baten gainean deus ere jaso nahi izaitea, **ergelik ergelenak** ere ederki uler zezakeen bezala. Joan Mari Irigoien

Prometeok **ergelarena** egin zuen gizonei sua emanik, saldu beharrean: dirua egingo zuen, Jupiter baretu, eta saiaren larrialdi hura horrenbestez saihestu. Juan Garzia

- **Ergela** ematen dut, ala? -bota zion zakar osaba Vernonek. Iñaki Mendiguren

Nabari da, gainera, zinez **ergela** eta zentzugabea izan beharko zela gizona horrelako edozer idazteko. Piarres Xarriton

2 irud/hed

Herria artalde **ergel** bat da, batzuetan zozo pairatsua, bestetan anker asaldatua. Josu Zabaleta

Entzun, arren, herri **ergel** eta zentzugabea: [...]. Elizen arteko biblia

Jakintsua gauza asko dakizkiena da, hau da, gezur eta kontu **ergel** asko irentsi dituena besteak beste. Iñaki Segurola

Luixak musu **ergel** bat eman zidan eta xoria bezain arin urrundu zen! Janbattitt Dirassar

Ez naiz oroitzen zer esan genion elkarri, ezta hitz bakar batez ere, baina ziur aurpegian nahiko irri **ergelarekin** amaitu nuela. Oskar Arana

Gogorik gabeko barre **ergel** bat ezpainetatik zintzilik dutela. Iñaki Segurola

Irribarre **ergel** bat aurpegian zintzilik. Jon Muñoz

Sentitu egiten nuen, besterik gabe, nik ere urdaila baitut; sentipen **ergela**, nolanahi ere. Joxe Austin Arrieta

Horrez gain, [Adelak] ez zeukan besteok bezalako tabu eta herabetasun **ergelik**. Juan Kruz Igerabide

Zer eskaintzen digu, galdetzen dut nik, erlijio **ergel** honek? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Hauek dira eztabaida **ergelak**! -esaten zuen Margaritak mespretxu-muzin batez. Josu Zabaleta

Ezin itzurizko asturuari itzuriko zaiola sinetsarazten dion uste **ergelak**. Jon Muñoz

Jendeak oso ideia **ergela** izaten dik gauzei buruz -esan zion Aracilek haserre doinuz-. Josu Zabaleta

Maneten margolanak defendatu zituen burgesen konformismo **ergelaren** kontra. Karlos Zabala

Askotariko galderak egin geniezazkieke, hala nola sukaldariek zergatik jokatzen zuten hain modu **ergel** eta zentzugabean, janaritegia zergatik zegoen beti erdi hutsik. Jose Morales

Hirekikoak eginak zituztela pentsatzen hasiak ginenean, horra non atera gaituan hain manera **ergelean** sartu garen atakatik. Aingeru Epaltza

Dituzte begiak berarenganantz eta so gelditzen zaizkio lipar batez, ikusmin **ergela** agertuz. Jose Morales

Alde batetik, teoria "zientifiko" **ergel** bat, eta, bestetik, nekazaritza-praktika katastrofiko bat. Juan Garzia

Dena berarentzat egina dagoela uste duen gizonaren harrokeria **ergela**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Banekian nire esperantzak **ergel** eta koldarrak zirela: errealitateari aurre egin behar nioan, ezin ninduan neure buruarekin gezurretan ibili, hi ez baihintzen burutik joana. Xabier Olarra

Definizioa eskasa zen, **ergela** ez esateagatik. Bernardo Atxaga

Hasierako intentzioen atzentzea da, bai, maizenik egiten dugun hutsegiterik **ergelena**. Patziku Perurena

· Halako batean, barre **ergelka** eta algaraka hasi zen. Xabier Olarra

3 (adizlagun gisa) ik **ergelki**.

Hor **ergel** ibili da Ettinger. Oskar Arana

Hori da, hori, **ergel** jokatzea! Jose Antonio Mujika

Ez didazu neure alaba-bilobak besarkatzen utzi; oso **ergel** jokatu duzu. Elizen arteko biblia

Begira, bada, arretaz, nola zabiltzaten; ez jokatu **ergel**, zentzuz baizik. Elizen arteko biblia

Egungo indar-erlazioak direnak direla, aldi berean pittin bat moralizatzaile eta **ergel** sentitzen naiz alternatibak proposatzean. Iñaki Heras

Gero eta azkarrago ibiltzen zara eta erabat **ergel** sentitu zara arnasa estutzen ari zaizula konturatzean. Lourdes Oñederra

Gidaria nekaturik sartzen da, eserlekuan amildu eta musika erdipurdikoa aditzea aski omen du, plastikozko apaingailuen tartean ezarritako telesaiora begira dagoela, **ergel-ergel**. Edorta Agirre

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ergel itxuran agertuko zinateke betiere. Jon Muñoz

Norbaiten eskuetatik zerbait hartu baino lehen, inongo gauzarik arruntena izanik ere, luze eta **ergel**-aurpegiz aztertu eta susmo txarrez hartzen zuen. Jose Morales

Zorioneko Amagoia lanera noiz itzuliko ote galde niezaiokeen zorioneko Felicitasi, **ergel**-solas horri segida emateko gogorik izan banu. Aingeru Epaltza

Halako zer kilikagarri bat, bizitzan pauso motel-arraioz joan ohi den beste **ergel**-ontzi horietako bat ez zinela erakusteko. Oskar Arana

Etorkizunaren misterioa hain burugabeki eta lotsagabeki urratzen zuen **ergel** saldo haren erdian. Jose Morales

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txotxolo bihotz-**ergel** alenok, profetek hitz egin duten guztia sinesteko! Patxi Altuna

6 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa) ergeltasuna.

Munduaren eta mundutarren **ergelak** betiko erremindurik utzi zuten gizonari. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita ergel (3); **beste ergel** (4); **bezain ergel** (3); **edo ergel** (4); **ergel alaenak** (3); **ergel bat** (54); **ergel bat baizik** (5); **ergel bat bezala** (9); **ergel batean** (3); **ergel batek** (14); **ergel batekin** (4); **ergel baten** (14); **ergel batez** (4); **ergel batzuk** (5); **ergel eta** (36); **ergel ez** (4); **ergel haiek** (5); **ergel halakoa** (8); **ergel halakoak** (3); **ergel handi** (3); **ergel hark** (7); **ergel hau** (4); **ergel hau ez** (3); **ergel hori** (28); **ergel horiek** (10); **ergel horien** (3); **ergel horrek** (21); **ergel horrekin** (4); **ergel horren** (3); **ergel horrengatik** (3); **ergel horri** (4); **ergel hura** (10); **ergel hutsa** (25); **ergel jokatzea** (3); **ergel samarra** (8); **ergel samarrak** (5); **ergel sentitzen** (4); **eta ergel** (23); **gizon ergel** (5); **hain ergel** (3); **hain ergel eta** (3); **herri ergel** (3); **herri ergel eta** (3); **irribarre ergel** (6); **irribarre ergel bat** (5); **modu ergel** (3); **nazio ergel** (3); **ume ergel** (4)

agure ergela (4); **are ergelagoa** (3); **bai ergela** (17); **baina ez ergela** (3); **baino ergelagoa** (4); **batere ergela** (3); **bezain ergela** (11); **da batere ergela** (3); **da ergela** (5); **den ergela** (3); **edo ergela** (3); **erabat ergela** (4); **erdi ergela** (3); **ere ergela** (3); **ergela baino** (3); **ergela baino ergelagoa** (3); **ergela baino ergelagoa** (3); **ergela bezala** (3); **ergela bihurtzen** (3); **ergela da** (11); **ergela deitu** (4); **ergela deitu zion** (3); **ergela dela** (5); **ergela delako** (3); **ergela edo** (3); **ergela ematen** (3); **ergela ere** (3); **ergela eta** (13); **ergela ez** (15); **ergela ez bestea** (3); **ergela galanta** (3); **ergela haiz** (7); **ergela haiz edo** (3); **ergela halakoa** (24); **ergela iruditu** (3); **ergela iruditzen** (4); **ergela izan** (20); **ergela naiz** (5); **ergela naizela** (6); **ergela ni** (4); **ergela nintzela** (6); **ergela nintzen** (3); **ergela zara** (3); **ergela zela** (5); **ergela zen** (6); **eta ergela** (15); **ez da ergela** (4); **ez ergela** (7); **ez hadi ergela** (4); **ez naiz ergela** (3); **ez zaitez ergela** (5); **ez zen ergela** (3); **guztiz ergela** (4); **hadi ergela** (4); **hadi ergela izan** (4); **hain ergela** (9); **hi ergela** (3); **hi ergela haiz** (3); **horren ergela** (6); **naiz ergela** (4); **ni bai ergela** (4); **ni ergela** (3); **nintzen ergela** (3); **oso ergela** (4); **txori ergela** (3); **zaitez ergela** (5); **zaitez ergela izan** (5); **zein ergela** (4); **zen ergela** (4); **zer ergela** (5)

baina ergelak (3); **bezain ergelak** (6); **dira ergelak** (3); **edo ergelen** (3); **ergelak dira** (3); **ergelak direla** (5); **ergelak eta** (4); **ergelak ez** (3); **ergelak halakoak** (4); **ergelak izan** (5); **ergelak ziren** (3); **ergelaren moduan** (5); **ergelarena egin** (5); **ergelen bat** (4); **ergelen moduan** (4); **ergelenak ere** (5); **ergelik gabe** (3); **ergeltzat edo** (3); **ergeltzat hartu** (4); **ergeltzat hartuko** (4); **ergeltzat hartzen** (3); **ergeltzat jo** (5); **eta ergelak** (7); **eta ergeltzat** (3); **ez dira ergelak** (3); **gerrako hildako ergelena** (3); **hildako ergelena** (3)

---

ergelbide *iz* ergelen bidea.

Mugarri berririk ez gure haurrei, zinema industria estatubatuarraren mesede, hain patxadatsu ordaintzen diegun **ergelbidean**. Aingeru Epaltza

---

ergeldu, ergel(du), ergeltzen da/du *ad* ergel bihurtu.

Benetako animaliez ari gara, jakina, ez ia gure hurko edo senide bihurtu ditugun animalia etxekotu eta etxe-barrukoez; horiek gu bezalaxe dira ondoezten, gaixotzen, **ergeltzen**, deprimitzen eta "hiltzen". Iñaki Segurola

Seko **ergeldu** zait Kerli hau!. Josu Zabaleta

Txoil **ergeldu** gabeko haur guztiek nahi dutena garbi-garbi erratea bertzerik ez duzu egin zuk. Iñaki Segurola

Pertsona **ergeltzen** duen organoa zein den asmatu eta esplotatzen jakitean datza. Xabier Olarra

Irrika orok du hein batean **ergeltzen**: gogoaren zabala eta argia, jakin-mina, estutu eta moteldu egiten du, maiteak bereganatzen baitu arreta osoa. Markos Zapiain

Hire osaba gizon argia duk, argiegia beharbada, baina argiaren gehiegiak itsutzen eta **ergeltzen** ditu batzuetan pertsonak. Joan Mari Irigoien

Gazte bati garbi agertzen bazaizkio lizunkeriak dakartzan kalte ikaragarriak, nola **ergeltzen** duen, eta, malda behera horretan abiatuz gero, nola datozen atzetik beste galdukeria guztiak [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jaten ari zirela, beste zerbitzariak agertu ziren; **ergeldurik** bezala geratu ziren begira. Juan Kruz Igerabide

Harri eta zur **ergeldurik** geratu nintzen lehendabizi. Josu Zabaleta

Begira, zu gaixorik zaude, **ergeldurik**, eta nik osa zaitzaket. Markos Zapiain

---

ergelgarri *izond* ergeltzen duena.

Akidura, asperdura, horren guztiaren beti-berdin gogoaren **ergelgarria**. Oskar Arana

Akidura, asperdura, horren guztiaren beti-berdin gogoaren **ergelgarria**. Oskar Arana

---

ergelka ik **ergel 2**.

---

ergelkeria **1** *iz* ergelari dagokion egitea.

Hala, Iseka ere, Gorroto dugun edo beldur garen gauza baten aldeko Mesprezutik sortzen da, eta Erdeinua, berriz, **Ergelkeriaren** aldeko Mesprezutik. Piarres Xarriton

Ergelkeria da burdinaz egitea: herdoilak jaten du osorik, bi urte ere ez du irauten. Juan Garzia

Cesareo Cifuentesena ez da **ergelkeria**, baieztapen zentzuduna baizik. Josetxo Azkona

Hain garrantzitsua haizela uste duk? Zer **ergelkeria** hire etsimenean! Josu Zabaleta

Txolindurik, denetariko **ergelkeriak** botatzen zituen bata bestearen atzetik. Jose Morales

Rogerio izeneko elizgizon bat aita dohatsuaren zauri sakratuez **ergelkeriak** pentsatzen ari zen. Askoren artean

Horrekin guztiarekin, ordea, geure **ergelkeriak** galdu gintuen oraingoan. Juan Kruz Igerabide

Azkenik, -eta honek gainditzen ditu zitalkeria eta **ergelkeria** guztiak- jakintsu izan eta aldi berean bazter uzten du jakituria. Imanol Unzurrunzaga

Egunkariek **ergelkeriak** eta ahoberokeriak baizik ez zituzten esaten. Josu Zabaleta

Ezjakinek eta arduragabeek, beren **ergelkeria** eta ezgaitasuna itxurazko betegintza eta jakituriaz eta inoren bikaintasunaz mozorrotzen dutenek. Xabier Kintana

Disko musikaren eta rock progresiboaren **ergelkeriaren** aurkako erreakzio gisa sortu zen *The Ramones*. Berria - Kultura

Erabat gogogabe, banekien-eta **ergelkeria** bat esaten ari nintzela, eta gustu txarrekoa gainera. Ramon Saizarbitoria

Ikusi nuen hobea dela jakinduria **ergelkeria** baino, argia ilunpea baino hobea den bezala. Elizen arteko biblia

- **Ergelkeria** baita -esan nuen- itsumustuan jarraitzea, harik eta gasolina erabat agortu arte. Joxe Austin Arrieta

Ergelkeria zen begi-bistakoa ukatzen hastea. Aingeru Epaltza

Bere buruarekin gezurretan ibiltzea **ergelkeria** zela. Iñaki Zabaleta

Ergelkeria izango bailitzateke hitzaurrea luzatzea eta historia bera laburtzea. Elizen arteko biblia

Barkatzen diot nire buruari **ergelkeria**; **ergelkeria**, inozokeria eta memelokeria gauza humanoak direlako, eta beren humanoan barkagarri. Harkaitz Cano

Juduen irudimen gaixotuak asmatutako **ergelkeria** bat duk golema. Anjel Lertxundi

Ergelkeria horiek guztiak sinesten ditudalako itxurak beharko ditut bada egin. Jon Muñoz

-Aspertuta nago esaten dituzun **ergelkeria** horiez. Josu Zabaleta

Arratsaldeak Senatuan **ergelkeriez** eztabaidatzen eta Aberriaren aitonei logalea eraginez ematen duten senatari gogaikarri horietako bat. Josu Zabaleta

Malebranchek, ikasle zintzo eta leialegi orok bezala, Descartes maisuarena **ergelkeriaren** mugetaraino eraman zuen. Anjel Lertxundi

Hona **ergelkeriaren ergelkeria**, ez zuten kondenatu bere herriko lege politiko eta zibilen arabera, baizik eta epaileen beren lege politiko eta zibilen izenean. Iñaki Iñurrieta

Ergelkeriatik ergelkeriara ibili ondoren, nigana zatoz! Jon Muñoz

Ok egin eta botatakoaren jira-biran dabilen txakurra bezalakoa da behin eta berriz **ergelkeria** berera itzultzen den zentzugabea. Elizen arteko biblia

Gurea bezalako lasaitasun-egoera bat iraina da jelosiazko, bekaitzezko eta **ergelkeriazko** tragedia etengabe batean bizi den jende horrentzat. Josu Zabaleta

Funtsezkoa zen nabigatzaile ona izatea **ergelkeriazko** itsaso hartan, bidea ustekabeko tranpaz josia baitzegoen. Karlos Zabala

Mitomania **ergelkerien** estalki. Patziku Perurena

“Ez egin **ergelkeriarik**”, entzun zuen. Pello Salaburu

Hori **ergelkeria** egin duena, Frantziako nazionalitatea hartzea! Fernando Rey

Hori **ergelkeria**! Josu Zabaleta

Listoegia denak disimulatu egin beharko du, jokoa sinplismoaren eta **ergelkeriaren** joko-zelai lokaztuan jokatuko baita ia beti. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ergelkeria zentzugabea zen monumentuaren aurrean Margaren arrastorik aurki nezakeenik pentsatzea. Juan Luis Zabala

Hori pentsatzea **ergelkeria** absurdua zela esan nion neure buruari. Juan Luis Zabala

Otegi kartzelatzea «zentzugabekeria juridikoa eta **ergelkeria** politikoa da». Berria - Euskal Herria

Pobreak defenditzea bezain **ergelkeria** handia duk aberatsak defenditzea. Josu Zabaleta

Hizketan hasi orduko zorakeria dio, eta bukatzean **ergelkeria** gaiztoa dario. Elizen arteko biblia

-Tira, Perrette, barkatu zakarkeria, baina **ergelkeria** galanta esan duzu! Jon Muñoz

-Hire oinazea **ergelkeria** hutsa duk. Patxi Zubizarreta

Politikagatik gure artean hainbeste liskar izatea, hori **ergelkeria** hutsa iruditzen zait! Josu Zabaleta

Van Daan andreak inon diren **ergelkeriarik** handienak jaulkitzen dituenean, Putti sutan zutitzen da askotan. Josu Zabaleta

Ezin duzu asmatu nolako **ergelkeriak** eginarazi dizkidaten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zelako **ergelkeria**! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sekulako **ergelkeriak** esaten direla bihotzak huts eta buruak gainez egiten duenean. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan)

Gainerakoan, eskueran izango duzu giza **ergelkeria** ere, lingirdatsu eta likatsu samartua beroaren eraginez. Xabier Olarra

Bi gauza dira infinituak: unibertsoa eta giza **ergelkeria**. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ergelkeria (5); **da ergelkeria** (3); **ergelkeria bat** (12); **ergelkeria bat da** (4); **ergelkeria da** (9); **ergelkeria egin** (4); **ergelkeria eta** (9); **ergelkeria galanta** (7); **ergelkeria handia** (7); **ergelkeria hori** (3); **ergelkeria horiek** (4); **ergelkeria hura** (3); **ergelkeria hutsa** (17); **ergelkeria hutsa da** (4); **ergelkeria iruditzen** (7); **ergelkeria izan** (3); **ergelkeria izango** (3); **ergelkeria politikoa** (3); **ergelkeria zela** (3); **ergelkeria zen** (3); **ergelkeriak esaten** (3); **ergelkeriak eta** (3); **ergelkeriaren eta** (3); **ergelkeriarik esan** (3); **ergelkeriarik ez** (3); **ergelkeriarik handiena** (3); **eta ergelkeria** (18); **eta ergelkeriaren** (3); **giza ergelkeria** (3); **hori ergelkeria** (11); **hori ergelkeria hutsa** (4); **zelako ergelkeria** (3); **zenbat ergelkeria** (3); **zer ergelkeria** (3)

---

ergelki *adlag* ergelkeriaz.

Ergelki eta temati ukatu. Imanol Unzurrunzaga

Bere bihotzeko senari **ergelki** jarraikiz, nik ezin iritsi dudan zoriona aurkitu duela. Jon Muñoz

"Ikusteko" era berri hori da **ergelki** *matematika modernoa* esan izan zaiona. Jon Muñoz

Adderley-k **ergelki** kulunkatzen zuen alga zuria. Juan Garzia

Geografiaren datuak gogoan erabili ("Unibertsoaren halako puntutan nago! uaaa!") eta haiekin **ergelki** zorabiatzea. Iñaki Segurola

Fahd erregeak, **ergelki**, Saudi Arabia AEBen lagun estrategiko bihurtu zitekeela uste zuen. Berria - Harian

---

ergelkiro *adlag* ergelki.

Guk, beti bezala, vasconismo zahar garbia **ergelkiro** mitifikatuz paleolitoraino eraman dugu atzo goizeko ikazkinen gizaera mixerablea. Patziku Perurena

Kanpoko uniformismoa imitatu eta geurean **ergelkiro** komertzializatu. Patziku Perurena

"Frantziako poeten Printzea da", errepikatzen zuen **ergelkiro**. Juan Garzia

---

ergeltasun **1** *iz* ergela denaren nolakotasuna.

Materia ergela, bere nagi-soraioan etsai, giza **ergeltasuna** etsai den bezala, eta hura bezala bere burueskastasun pasiboaren kariaz indartsu. Juan Garzia

Hain baita handia gizonon **ergeltasuna**. Joan Mari Irigoien

Umorea ere **ergeltasuna** zorroztasunarekin gurutzatzen den lekuan sortzen da. Berria - Kultura

Batzuek **ergeltasunak** eraginda egingo dute hori, beste batzuek gaiztotasunez. Jose Morales

Horrelakoak edozergatik izutzen eta haserretzen dira, eta, beren **ergeltasunean**, zeruko lege naturaltzat hartzen dituzte gizarte erakundeen fruitu huts direnak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizakiekin hitz egitera behartzen zenean, zurrundurik geratzen zen arrotzen artean balego bezala, eta oso haserretzen zen, bere baitan, bere kidekoen **ergeltasunagatik**. Josu Zabaleta

Ergeltasun etsi batez errepikatzen dute beren formula. paranoiatik monomaniaraino hel gaitezke, adimen-kozientetik **ergeltasunaren** lehen adigairaino, paralisi orokorretik entzefalopatia kronikoraino. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan)

Gisakoak giza **ergeltasunak** besterik ezin ditu eragin.· Atzeratua, hitz itsusi hau zentzu honetan dateke soilik ulergarri: gure **ergeltasun** maila harrapatzeko lasterketan atzeratua. Berria - Euskal Herria

Bioletaren mirespena **ergeltasun** ukitu baten adierazle ere bazela iruditzen zitzaidan, heldutasun ezaren seinale. Ramon Saizarbitoria

---

ergeltegi *iz adkor* ergelen biltegia.

Euskalduna, ez da berez letratu, letratu kondeszendiente baizik, euskaldun iletratuak jada beragandik bueltarik gabeko arroztu eta **ergeltegi** bateko azienda bezala ikusiko dituena; eta ez sekula letren jostetan eta arriskutan ibiltzeko txirrinta dutenak. Patziku Perurena

---

ergeltxo *izond adkor* ergela.

Denbora luzea behar izan zuen Ginny **ergeltxoak** bere konfiantza egunerokoan ez jartzeko -esan zuen Riddlek-. Iñaki Mendiguren

Cecilek bahitu egin zintuen, konbentzitu, haren eskutik aita dotore hura maite izan zenuen, adinaren mugaz at praktikatu zenuen sexua, harekin ere barre egin zenien aitaren maitale **ergeltxo** eta jatorrei, eta gorroto izan zenuen deblauki agerturiko andre sendo eta boteretsu hura. Berria - Kultura

Ezinezkoa, **ergeltxo** baten ekinaldi erdi ero horien esplikazioa ematea! Bernardo Atxaga

---

ergeltzar *izond adkor* ergel handia.

Utikan **ergeltzar** hori! Anjel Lertxundi

---

ergeltze *iz* ergel bihurtzea.

Horixe baita, halaber, *%100 Basque*: azken aldian politikan eta kulturan **ergeltze** bidean aurrerapauso ikusgarriak egiten ari garen ezker abertzaleko euskaldunoi arimaren erdi-erdian emaniko makilada. Markos Zapiain

Ford-ek ederki dioen legez, "gure gizartearen **ergeltzearen** azken adibideetako bat" da hori eta, etorkizun hurbilean, behintzat, areagotu egingo da joera. Edorta Agirre

---

ergo *junt adkor* beraz.

Gaztea nintzen, **ergo** susmagarria. Anjel Lertxundi

Halako zenbaki osoa imajinaezina da; **ergo**, bada Jainkorik. Juan Garzia

Borreroa euren esanetara dago: **ergo**, ez da hiltzaile bat. Karlos Linazasoro

Ohe gaineko burusi grisak soldaduek mando gainean jartzen dituzten manten antz handia du; horretaz ohartu orduko, mando-obramenduen kiratsa hartzen hasi naiz burusiari; **ergo**, ez da hain harrigarria Zumalakarregik, gerra zaharrak gogoan, ihes egitea. Anjel Lertxundi

- **Ergo**, litekeena da Mireia paralizatuta edo nolabait ukituta egotea sua hasi zenerako. Fernando Morillo

Ergo, ilargiaren argia eguzkiarena duk. Joan Mari Irigoien

Ari da (ezagutzen), **ergo** da (ezagule), besterik argitu edo aztertu gabe. Jenaro Garate

---

ergologo *iz* lanaren azterketan aditua den pertsona.

Christophe Dejours **ergologoak** ederki aztertu zuen prozesu hori, preseski Arendten ondorioetan bermatuz, Souffrance en France liburu batean. Itxaro Borda

---

ergometro *iz* muskuluen lana neurtzeko tresna.

Ergometroa arraunean egin beharreko mugimendua eskatzen duen tresna bat da. Berria - Kirola

Lehendabiziko hilabete horietan, arraunlariak korrika, pisuak altxatzen edota **ergometroan** aritzen dira. Berria - Kirola

---

ergonomia *iz* langilearen eta bere lan giro eta lan tresnen arteko erlazioen azterketa, haren eraginkortasuna areagotzeko helburua duena.

FG 600 makina goraipatu zuen epaimahaiak: «Aurrerapen handia dakar segurtasunean eta **ergonomian**». Berria - Ekonomia

---

ergonomiko **1** *izond* ergonomiarekin bat datorrena.

Irizpide **ergonomikoak** ez dira kontuan hartzen, eta asko irauteari zein merkeak izateari garrantzi handiagoa ematen diete. Berria - Euskal Herria

Ikasleen zein irakasleen osasunari begira, altzari **ergonomikoak** erosi beharko lirateke, ikasleak ere denbora luzean egoten baitira aulki ezegokietan eserita. Berria - Euskal Herria

Goizean takoiak jantzi dituzula ahaztu zaizu eta oreka galdu duzu aulki **ergonomikotik** altxatzean. Eider Rodriguez

Gurpilaulki **ergonomikoan** dabilela. Joseba Sarrionandia

2 ergonomiari dagokiona.

Arnesak, kaskoak, sareak eta aldamioak asmatu dira, baina kalte **ergonomikoak** edo psikosozialak eragiten dituzten lanbideetarako ez dago ezer, eta horiek dira emakumeek betetzen dituzten lanbideetan izaten direnak. Berria - Euskal Herria

---

ergoterapeuta *iz* ezinduak eta eriak eskuzko lanaren bidez tratatzen dituen terapeuta.

Aterpetzen dituen pertsonen jarraipena egiteko lau sendagile, hiru **ergoterapeuta**, ortofonista bat, 12 kinesiterapeuta, gizarte laguntzaile bat eta psikologo bat ditu. Berria - Euskal Herria

---

ergotina *iz* zekalearen onddo parasito batetik ateratzen den isurkaria, medikuntzan hodi-uzkurtzaile gisa erabiltzen dena.

Ergotina injekzio bat eman zion segituan, baina ezin izan zuen eragotzi Luluk hemorragia handi bat izatea. Josu Zabaleta

Musulmanek kuzkurturik egiten dute pixa; emagin hinduek, **ergotinatako**, beira txikitua behiaren pixarekin nahasirik erabiltzen dute. Monika Etxebarria

---

eri[1] *(**1.472** agerraldi, **107** liburu eta **552** artikulutan; ETCn **10.517** agerraldi)* **1** *izond/iz* osasunik ez duena, gaixotasunen bat duena. ik **gaixo**.

Alderdi guztietako gudari **eriak** zeuden sala hartan. Inazio Mujika Iraola

Adiskide **erien** berri jakitera. Jon Muñoz

Bostongo edo Miamiko aberatsen seme-alaba **eriei**. Aingeru Epaltza

Mikel eta Panpili bi kusiek Ttotteren guraso **eri** eta ahulak hertsatzen zituzten. Itxaro Borda

Sendagile artotsu batek ez ditu gizaki **eriaren** hatzak ukitzen min emateko, baizik eta hatz **eriak** sendatzeko eta hatzen bidez gizaki osoa. Joan Mari Lekuona

Sendagileak **eria** eta hatzak sendatzerik baleuka, atseginez egingo luke, baina ez baleuka, zalantzarik gabe hatz **eriak** moztuko lituzke gizakia salbatzeko. Joan Mari Lekuona

Krudela da etsipenak jo duen **eria** izutzea. Jon Muñoz

Bero gehiegi eginen omen zuen; **eri** gertatzeko arriskutan nengokeen. Jon Muñoz

Baliatu nuen Rosemonde andrea urrundua zen une bat **eriari** neure gutuna emateko. Jon Muñoz

Iduri du hala ere bart gauean **eriak** kordea doi bat berreskuratu duela. Jon Muñoz

Mediku bat zuen bere erranetarat, **eriez** arduratzen zena. Joan Mari Irigoien

Eriak erietxera, zaharrak zahar-etxera, eta hilak tanatoriora. Joxerra Garzia

Zeren gela barrenean kandela bat baitzegoen, **eriaren** gelaz arduratzen zen morroiak irazekia. Joan Mari Irigoien

-Aita baten ordez gauza triste bat ukan duk -jarraiki zuen **eriak**-. Elena Touyarou

Eguargiarekin, **erien** hots mingarrak isildu egin ziren. Edorta Jimenez

Izurritea gertaturik gaitzeko lana egin zuen **erien** alde, kutsatua izateko beldurrik gabe. Xipri Arbelbide

Indiar gorri haiek bazuten, **erien** sendatzeko eta osatzeko, gizon seinalatu eta berezi bat, tribuko medikua eta aztia zirudiena eta **eriari** belarrak eta edabeak emaiten zizkiona. Joan Mari Irigoien

Berrogoi urtez elizaz, kantuaz, katiximaz arduratzen da eta bestalde familietan ibiltzen **erien** artatzen. Michel Oronoz

Eri asko gaitz sendaezinak jota zeuden, Itzal Beltza deitzen zioten gaitzak jota. Agustin Otsoa

Beheko solairuan jarri ninduten, larrialdietarako gelan bihotzeko **erientzat** atxikitako gelaxka txikietako batean. Oskar Arana

Gaur bertan, **eriak** eta eroak, gizagaixoak eta pobreak bezalaxe, beren barrendietan bizi dira, beste jendeagandik bereiz. Patziku Perurena

Korolario hau, **eriaren** eta sendoaren adibidearekin argitzen da. Piarres Xarriton

2 irud/hed

Hori gaur egunean normala da, gizarte **eri** honen sintomatologia jakinekoa. Iñaki Segurola

Zin-zinez du gure bizitza honek zimendu flako eta **eria**. Joan Mari Irigoien

Intolerantziak, gogor-irteerak, irmotasunak, gutarrismo **eriak**, ideien purutasunak, koherentzia iraunkorrak eta abarrek, Plá-ren arabera, norekin eta kastillanoekin dituztela senidetzen eta berdintzen euskotarrak. Iñaki Segurola

Bere erregina berriro agertu zen miraríz, eta, zalantzarik ez, bihotza lasterka batean zebilkion, bere bular maitasunez **erian** eroki taupaka. Oskar Arana

3 (izen gisa, izenondo eta izenlagunekin)

Volanges deabru hori, niri kalte egiteko premiaz ustez presatua, bere lekutik altxa zen **eri** xarmantaren bila joateko. Jon Muñoz

Eri maltzur hark jarri zuen nehor ikustea galarazten zion buruko min baten estakurua. Jon Muñoz

Eri etsia omen da. Jon Muñoz

4 (adizlagun gisa)

Eri itzuli baitzen, 1516ko saioan Erronkarin Pedro mariskalarekin batera errenditu eta gero. Aingeru Epaltza

Hain sentitu nintzen flako, ahul eta **eri**, non, finean, berriro zorabiatu bainintzen. Joan Mari Irigoien

Bata zainetarik **eri**, bestea langabezian, azkena estatuak lagundu enplegu batean! Itxaro Borda

Aspaldian lanik gabe, zainetarik **eri**, bere buruaz beste egitera ere entseatua omen zen. Daniel Landart

Hiru hilabete **eri** eman ondoren berriz ikasten hasi behar nuela. Fernando Rey

5 (hitz elkartuetan)

Bakean utziz gero, Gregek orduak ematen zituen **eri**-gelan bere kabuz ezer egin gabe. Xabier Olarra

Hurbilagotik, arestian baino nabarmenagoa du begitarte galdu, etsi eta **eri** antza. Aingeru Epaltza

· Ospitalera iritsi eta denbora gutxira tifus **erien** salara eraman zutela esan zion, han gaixotasun hori harrapatu zuela eta hil egin zela. Josu Zabaleta

6 *eri egon*

Eta **eri nengoen** eta ero nengoen, amorioaren gatibu, baina eritasun hura eta erotasun hura ziren, bertzalde, ene hatsa eta ene osasuna. Joan Mari Irigoien

Iragan neguan, berriz, behin eta bitan **egon** nintzen **eri** ohean, sukarrak harturik. Joan Mari Irigoien

Larriki **eri egon** ondoren Pariserat itzuli zenean. Joan Mari Irigoien

Aitona Nikolas gero eta **eriago** eta ezinduago **zegoela**, gero eta hutsago eta eskasago. Joan Mari Irigoien

Gaur egun, jainkoek abandonaturik, **eri dago**: "parkinson" eritasuna dauka. Ramuntxo Etxeberri

Eri eta urduri **zegoela**, sosegurik gabe. Joan Mari Irigoien

Hargatik **zegoela** bera **eri** eta hil hurran. Joan Mari Irigoien

Inoiz **egon** ote naiz hain **eri** eta eroririk? Anjel Lertxundi

Kerley andrea, ileurdina, hauskorra eta arretatsua, **eri zeudenei** urtebetetze-postalak bidaltzea eta beirazko pote bete zopa eramatea baino beste gogoetarik ez zuena. Mirentxu Larrañaga

5 *ilargi-eri* ilargi-joa.

Ebanjelioan ageri diren ilargiak-jotako haien gaitza, Jesusi senda zitzan bazter guztietatik eramaten zizkioten haiena: **ilargi-eriak,** halaxe deitu izan zaie aspaldiko itzulpenetan. Pello Zabala

Ilargi-eriz jota etorri badira. Pello Zabala

6 *eri handi* (*orobat* ***haundi***)

Aspaldian eri zen, **eri handi**. Herria

Nexka hori gertatzen da maleruski **eri handia** dela eta behar dituen artamenduak ukaiteko atzerrira joaitea bortxatua dela. Herria

Egia da, nihundik ahal bada, behar direla **eri handi** baten oinazeak osoki eztitu eta soleitu. Herria

Denboran gizon azkarra izana, aspaldixkoan haatik **eri handi** zen. Herria

Bagenekien **eri handi** zela baina uste baino lehenago joan zaigu. Herria

Norbait **eri handi** zelarik, etxekoek orgetan ahal bezain ongi kokatzen zuten eta euskal lurretan komunikabide zen edozein bidexka hartzen zuten bestaldera eramateko eta azken sakramentuak ukan ondoan, han lurperatzeko. Elena Touyarou

Ongi inguratuak eta maitatuak diren **eri handienek** ez dute galdegiten erremediorik hiltzeko! Herria

Eri da, **eri handi,** gure demokrazia! Herria

Bortz urte eman ditu Larrazkenan, **eri handi**. Herria

· Gau eta egun **eri handiak** arta beharretan daude. Herria

Egia da, nihundik ahal bada, behar direla **eri handi** baten oinazeak osoki eztitu. Herria

7 *eri izan* da/du *ad*

Atzodanik **eri da**: eritasunak hain du biziro kolpatu, eta hain sintoma larriz da agertu, non zinez asaldatu bainaiz. Jon Muñoz

Beñat Inchauspe dugu azkar, ez **da eri**! Herria

Geroztik hura **eri izan** delarik, berriz ohoratu ere nauzu zeure kezken kontakizunaz. Jon Muñoz

Badakit ez **naizela eri**, ez naizela nehoiz **eri izan**, ez arimatik ez eta burutik. Itxaro Borda

- **Eri den** fededun bati komunioa eraman diot. Elena Touyarou

Nire atezainak ez dio sartzera uzten, eta **eri naizela** jakinarazten dio. Jon Muñoz

Konplituko dut zuk Danceny zaldunarentzat duzun mandatua, nor ere segur baita hagitz beltzurituko ama **eri duzula** jakinik. Jon Muñoz

Aita lazki **eri duk**, ama xahartuxea eta hi ez haiz momentuan zainetarik ongi; hobe huke etxaldea, landak bederen, lanean aritzeko tirria dutenei alokatzea eta alokairuarekin hire sendiaren sendatzeko sosa sakelaratzea. Itxaro Borda

-Burutik **eri zara**. Itxaro Borda

Eri da, biziki **eri**! Artatuko dugu! Michel Oronoz

Mayola larriki **eri baitzen**, denbora guti iraun zuen. Ramuntxo Etxeberri

-Bizi da, bai, baina arras **eri da**. Eneko Bidegain

Emazte bat mintzatu zait, erranez semea **eri duela** eta A Coruñara eramana, infarktu baten ondorioz. Piarres Aintziart

Ama hila zuen, aita **eri**. Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ama eri (3); **arras eri** (9); **arras eri da** (3); **baginakien eri** (4); **bat eri** (11); **bera eri** (3); **bere eri** (5); **beti eri** (3); **bihotzeko eri** (4); **biziki eri** (4); **da eri** (5); **den eri** (3); **diren eri** (3); **ditu eri** (3); **ditu eri egoteagatik** (3); **duen eri** (4); **edo eri** (7); **ere eri** (5); **eri artatzaile** (6); **eri artatzale** (3); **eri artean** (5); **eri baino** (3); **eri bat** (12); **eri batek** (6); **eri baten** (7); **eri batentzat** (3); **eri batez** (3); **eri bati** (5); **eri buruz** (4); **eri da** (11); **eri dago** (4); **eri dagoen** (3); **eri dela** (6); **eri den** (7); **eri diren** (7); **eri direnak** (3); **eri duk** (3); **eri edo** (8); **eri egon** (11); **eri egon gabe** (4); **eri egon ondoan** (3); **eri egonik** (17); **eri egoteagatik** (3); **eri eta** (42); **eri eta xaharren** (4); **eri ez** (5); **eri gaizki** (4); **eri gelan** (4); **eri handi** (20); **eri handi zela** (3); **eri handi zen** (3); **eri handia** (5); **eri handiak** (3); **eri haundi** (8); **eri haundia** (4); **eri horiek** (4); **eri izan** (6); **eri izanez** (4); **eri naizela** (3); **eri serios** (3); **eri zela** (10); **eri zela eta** (3); **eri zen** (18); **eri zena** (4); **eta eri** (22); **ez eri** (5); **guti eri** (3); **guti eri egonik** (3); **haurrak eri** (3); **heleta eri** (20); **hilabete eri** (4); **hiru eri** (3); **huntan eri** (6); **larriki eri** (3); **luzaz eri** (8); **luzaz eri egon** (3); **luzaz eri egonik** (4); **nahiz eri** (3); **nire eri** (3); **xanti eri** (3); **zigortzen ditu eri** (3); **zuen eri** (4)

aspaldiko eria (5); **aspaldiko eria zen** (4); **baino eriago** (4); **bihotz eriak** (3); **da erien** (4); **dituzte eriek** (3); **du eriak** (3); **duen eria** (4); **eria bere** (4); **eria bezala** (3); **eria da** (4); **eria eta** (3); **eria zen** (6); **eriago eta** (3); **eriak artatzen** (3); **eriak eta** (11); **eriak ez** (3); **erien artatzeko** (4); **erien artean** (5); **erien asurantza** (16); **erien asurantza kutxa** (6); **erien asurantza kutxak** (7); **erien axurantza** (27); **erien axurantza kutxa** (4); **erien axurantza kutxak** (6); **erien axurantza kutxako** (5); **erien axurantza kutxan** (4); **erien axurantza kutxaren** (7); **erien eta** (6); **erien sakramendua** (3); **erien sendatzeko** (3); **eta eria** (8); **eta eriago** (3); **eta eriak** (7); **eta erien** (12); **eta erier** (4); **gero eta eriago** (3)

---

eri[2] 1 *iz* hatza.

Bakarrik diru zerbait baztertu zutenak salbatzen ahalko ziren errekaratzetik eta gosetetik, baina hauek eskuko **erietan** kontatzen ahalko ziren. Elena Touyarou

-Gezikada ederra - **eria** luzatu nuen hilaren besaburuaren aldera-. Aingeru Epaltza

Joanesek, berehala, **eria** ezpainen parera ekarriz, isiltzeko galdegin zion. Eneko Bidegain

Eraztun ugari **erietan**, baina ezkontzakorik ez ageri. Aingeru Epaltza

Eriak are zaluago ari zitzaizkion ileetan hazkabozka udako arratsalde amaigabeetan. Itxaro Borda

Alkoholak eta kanpoko hotzak **eriak** malgortzen zizkiola. Itxaro Borda

Lehenik begiak idekitzen dira, halako xoxo aire batean, gero **eriak** mugitzen eta gero zangoak luzatzen. Michel Oronoz

Oharkabean bezala, ezker eskuko **eriak** eskuineko hatz nagira eraman nituen, ezkon-eraztuna ukitzeraino. Aingeru Epaltza

Eri bat badut moztua; bi **eri** baditut baliatzen ahal ez ditudanak. Menane Oxandabaratz

Saharaz hegoaldeko zenbait tributan, **eri** bakoitzak bere erranahi berezia du. Erakuslea, biziaren hatza da, eta luzea, berriz, heriotzarena. Aingeru Epaltza

Neguan eskularru motzak behar zituen **erien** begiratzeko, odolgaiztoak minberatuak eta brioletatuak atxikitzen baitzizkion. Michel Oronoz

Zauria **eriaz** tapatzen. Itxaro Borda

Zeren imajinatu bainituen, bertzetik, indiar haietarik batzuk neure gorputzaz oturuntza egiten, kentzen zidalarik batek belarri bat, bertze batek bertzea, honek beso bat, hark zangoa... eta, orduan, ezker oinean falta zitzaidan **eriarekin** kontsolatu nintzen... hura behintzat nekez kenduko zidatenez gero. Joan Mari Irigoien

Hemen ere, harrimuga eder bat, Santiago kuskua, itsas hegiko harroketan oskolak bezal-bezala aztaparrez lotua, hamar **eriko** eskua iduri duela. Piarres Aintziart

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zenbat aldiz erromesak edo historilariak **eri** handia pausatu ote du Santiagorako bide kurutze honetan? Piarres Aintziart

Ezker oineko **eri** handiaren faltaz herren nintzelako. Joan Mari Irigoien

Potzoloren **eri** zuzena pistola bateko kanoi bilakatu zen. Aingeru Epaltza

Begia hertsirik, leporat eraman zuen **eri** erakuslea, alde batetik bertzerat, keinu ezin adierazgarriago batean. Joan Mari Irigoien

Marshall andreak eskuin eskua altxatu zuen, hatz erakuslea eta **eri** luzea zurrun eta estu-estu eginda zituelarik. Mirentxu Larrañaga

Irudi zitzaion aski zuela **eri** ttittilaren altxatzea pulindak oro koro-koroka bere altzoan edukitzeko. Itxaro Borda

Oroitzapen horien eraginez, iruditzen zitzaion bere gorputz **eri** gizena, ohean luze-luze etzana, arrotz zuela jadanik. Jose Morales

Eri potoloak altxatuz, kontuz, apezek *Dohatsu Bihotz Garbiak* kantatzen eta kantarazten zuten, telebistako kamera anitzen aitzinean. Itxaro Borda

Besoetan zeukan haurtxo pottoloak ere, bere gaztaina koloreko begi handiez behatzen zion, esku bateko **eri** pototsa murtxatzearekin. Elena Touyarou

Borrokan isuri nintzen teklatura iraulitako ene **eri** gogortuekin. Aingeru Epaltza

Lehian, haren **eri** urduriak diala kurriarazi diote trasteari. Aingeru Epaltza

-Aita ikusi nahi dut -esan zuen hark, besoak gurutzatuta eta ukondoei **eri** dardarati eta nikotinaz orbanduez estu helduz. Oskar Arana

Nire **eri** itsuek arrosarioa ezagutu zuten, zurezko bihi larri eta xeheetan harilkatua. Aingeru Epaltza

Hemeretzi urte egitekotan orduantxe, dagoeneko egona zen hainbat bider buruko **erientzako** bi ospitale pribatutan. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eri puntaz zeru gorenak erakutsiz. Itxaro Borda

Zilokak ttipiegi dira **eri** punta bat ere sartzeko. Filipe Bidart

Errebolberra mahai ertzean utzi zuen Maizak, kontu handiz, **eri**-muturrekin harturik eta arnasari eutsiz. Migel Angel Mintegi

Eri-koskorraz jo zuen kolpe pare bat atean eta erantzunik itxaron barik sartu zen bulegora. Josu Landa

Atea haztatu, zuraren artean nire **eri**-mamiek zerrailaren biribil metalikoaren hotza berenganatu eta giltza lehen kolpean sartu nuen zulottoan. Aingeru Epaltza

Utzi dut bere bidea segitzen, **eri** punttaz tentakuluak hunkitu gabe: haurtzaroko jostetetaz doi-doia oroitu naiz. Piarres Aintziart

Papuasiako emakumeek **eri**-hezurra mozten dute, doluz, senarra hiltzen zaienean. Aingeru Epaltza

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zango-**eri** batean kolpatua, zauria gaizkontzen ari zait. Marzel Etxehandi

Gaitzeko karga dauka bizkarrean; zapata arinen aurre zilatuek oin-**eriak** airean uzten dizkiote. Piarres Aintziart

Neska gazte bat bere zango-aztal eta oin-**eri** minberen artatzen ari da. Piarres Aintziart

5 (luzera neurri gisa) ik **hazbete**.

Bederen lau **eri** lodi zen haritzezko mahai bat, bi hutsa zizelkatu eta kadira zenbait baziren barne zabal bateraino eraman zituzten. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eri erakuslea (4); **eri pototsa** (4); **eri punta** (3); **eri zuzena** (6); **eskuin eskuko eri** (5); **eskuko eri** (5); **eskuko eri zuzena** (4)

---

erialdi *iz* gaixoaldia.

Behin eritzen gara eta berriro eritzen gara, eta **erialdi** bakoitzean hondatzen eta higatzen zaigu gorputza, urritzen eta murrizten zaizkigu indarrak eta kemenak, ahultzen eta flakatzen gara. Joan Mari Irigoien

---

eriauto *iz* anbulantzia.

Ama osabarekin **eriautoan** zihoala, aita eta biok atzetik gindoazen autoz. Aitor Arana

---

eriden ik **ediren**.

---

erietxe *(1.002 agerraldi, 51 liburu eta 526 artikulutan; ETCn 8.905 agerraldi; orobat **eritetxe** g.er.)* **1** *iz* eriak artatzen eta zaintzen diren etxea. ik **eritegi; erizaindegi; ospitale**.

Eriak **erietxera**, zaharrak zahar-etxera, eta hilak tanatoriora. Joxerra Garzia

Ipar Euskal Herriko ospitale, **erietxe** eta zahar etxeek zenbait neurri hartu dituzte, beroaldi bat gertatzen bada zaharrek egoera hobeki jasan ahal izan dezat en. Berria - Euskal Herria

Lege horren bidez abortatzeko epea 10 astetik 12ra zabaldu zen, izan **erietxean** ala klinikan. Berria - Euskal Herria

«Zumarragako **erietxetik** Donostiako ospitalera eraman zuten segituan, eta atzo goizean hil zen. Berria - Euskal Herria

Anbulantzia berehala agertu eta zauritutakoa Donostiako Ospitalera eraman bazuen ere, gaztea **erietxerako** bidean zendu zen. Berria - Euskal Herria

Angel Alcalde presoa astelehenean egindako ebakuntzatik ondo osatzen ari dela jakinarazi zuten atzo bere senideek, eta astelehenean eramango dutela Basurtuko **erietxetik** Txagorritxukora. Berria - Euskal Herria

Fresneseko espetxeko **erietxetik** Saint Maurre-ra eraman dutela, eta han erregimen arruntean sartu dutela. Berria - Euskal Herria

Seme nagusia medikua omen da, eta **erietxe** bateko zuzendaria. Joseba Sarrionandia

1918an sortua, 1947an Kanborat etorria eta geroztik zerbitzu frango emaiten zituen parropian baita ere **erietxe** edo xaharretxeetan. Herria

'Hopital 2007' planarekin **erietxeak** pribatizatuko dituztela salatu dute. Berria - Ekonomia

Erietxea gaixotasunei buruzko diskurtsoan leku osagarria besterik ez zen eta bere balioa eta garrantzia jardun pribatuaren garrantziaren atzetik zegoen. Xabier Arregi

Jendarmeen helikopteroak eraman behar izan zituen zaurituak **erietxera**. Berria - Euskal Herria

Premia larriz **erietxera** eraman zuten, eta geroztik hiru ebakuntza jasan dituen Israelgo lehen ministroaren egoerak «egonkortasunean larri» jarraitzen duela iragarri zuten atzo Jerusalemgo Hadassah **erietxeko** arduradunek. Berria - Mundua

Barne-medikuntzako medikua zela Columbia-Presbyterian Hospital **erietxean**. Oskar Arana

Alarma piztu zen Barakaldoko Gurutzetako (Bizkaia) **erietxean** ustezko meningitis kasuak zirela eta. Berria - Euskal Herria

Port-au-Princen duten **erietxean** indarkeriaren ondorioz zauritutako 2.250 lagun baino gehiago artatu zituzten. Berria - Harian

Gutxienez bederatzi pertsona hil eta beste hirurogei zauritu ziren bi eliza eta **erietxe** baten aurka bonba-autoz egindako erasoetan. Berria - Mundua

Erietxeko beste sailetan baino minbizi kasu gehiago daudela uste dute. Berria - Euskal Herria

Gurutzetako **erietxeko** mediku partearen arabera, Sestaoko ACBn zauritu ziren sei langileetariko bi larri daude oraindik. Berria - Ekonomia

Rioquemadoko **erietxean** ingresatuta geratu dela esan diot. Joseba Sarrionandia

Denbora asko baino lehen, guztiz ahaztuko nituen **erietxea** eta **erietxeko** gogoeta ilun haiek guztiak. Anjel Lertxundi

Auzoko **erietxeko** larrialdi-gelan, kommozio zerebrala nuela esan zidaten. Xabier Olarra

Erietxeko zaindariak haren gelaraino eraman eta aurkeztu ninduelarik, poztu egin zela iruditu zitzaidan joan nintzelako. Joxean Agirre

Baionako **erietxeko** Pediatria zerbitzuko arduradunak. Berria - Euskal Herria

Erietxeko erizainak etorri zitzaizkidan gogora. Anjel Lertxundi

Erietxeko egoiliar bakan batzuk zebiltzan lorategietako bidezidorretan pasieran. Joxean Agirre

Han zegoen hura **erietxeko** ohe-atorra ziztrina jantzita, gihar handiko gizon beltz morrosko bat. Oskar Arana

Erietxeko atondo handiko marmolezko eskaileretan gora, Ed Thatcher dardarka zihoan. Lopez de Arana

Erietxeko gizarte-langileari aditua nion musikazale porrokatua zela Greg, eta 60etako rock-and-roll taldeena bereziki. Xabier Olarra

Santanderko Valdecilla **erietxeko** kamera hiperbarikora eramatea erabaki zuten medikuek. Berria - Euskal Herria

Erietxeko iturrien arabera, hildakoak zibilak ziren. Berria - Mundua

Erietxetik deitu zioten larrialdiko ebakuntza bat egitera joan zedin. Oskar Arana

Bakterioak beherakoa eta koloneko hantura eragiten ditu, besteak beste, eta **erietxeetan** harrapatu dute gaixoek. Berria - Gaiak

New Yorkeko **erietxeetan**, ordea, 62.800 ohe daude soilik. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erietxe berrian, adibidez, literak hiru mailakoak ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Zaurituei dagokienez, eztandek 700 pertsona baino gehiago kolpatu zituzten; horietatik 350 bat tokian-tokian artatu zituzten, eta beste 350 inguru Londresko **erietxe** nagusietara eraman zituzten. Berria - Harian

Umea Neuilly-ko **Erietxe** Amerikarrean jaio zenean, Jimmy alderrai zebilen ferian zehar. Lopez de Arana

Lo dago, **erietxe** garesti baten, New Yorkeko goialdeko sartaldean. Gotzon Garate

Erietxe publiko bateko pabiloi ilun batean. Xabier Olarra

Hiru hilabete **erietxe** militarrean. Arantxa Iturbe

Larunbatetik iganderako gauean gertatu zen hilketa Paueko **erietxe** psikiatrikoan. Berria - Euskal Herria

Gazteentzako etxebizitzak eta **erietxe** onkologikoaren eraikin berria dira 2005 eta 2007 urte bitarteko Gizarte Ekintzaren helburu nagusiak. Berria - Ekonomia

Osasun zentroak eta erietxeak ditu hainbat hiritan, eta **erietxe** mugikorrak ere bai, eskualderik urrunenetara iristeko. Berria - Harian

Han sortua eta haraxe babes bila joana baitzen azken urteetan, bihotzeko eritasunetarako **erietxe** batean bizkortzera. Xabier Olarra

Williamsbridgen hartu zuten, gaixo kronikoentzako **erietxe** batean. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erietxe-itsasontziak portuan gora limurtzen ziren eta gauez isilgordeka deskargatzen zuten Jersey-ko nasa zaharretan. Lopez de Arana

Erietxe atariko argiak eta kanpoko aire berriak oraino bizirik zegoela sentiarazi zioten ostera ere. Hasier Etxeberria

Erietxe-eremuak, esaterako, ez du aldagaitza iraun, diskurtso klinikoak bera laborategiarekin harremanean jarri ostean. Xabier Arregi

Erietxe-klinika deritzon erakunde berriaren emaitzatzat. Xabier Arregi

Guduka hauetan, 14 irakiar hil ziren haietako zazpi ekintzaileak, eta beste zazpi, zibilak eta beste 19 zauritu, Najafeko **erietxe** arduradunek emandako datuen arabera. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baionako erietxeak (6); **baionako erietxean** (14); **basurtuko erietxean** (5); **da erietxean** (3); **dago erietxean** (6); **donostiako erietxe** (3); **egon zen erietxean** (3); **erietxe bat** (3); **erietxe batean** (48); **erietxe batean egin** (3); **erietxe batean hil** (3); **erietxe batean zegoen** (3); **erietxe bateko** (5); **erietxe batera** (14); **erietxe batera eraman** (9); **erietxe eta** (7); **erietxe eta zahar** (3); **erietxe guztietan** (3); **erietxe horretan** (4); **erietxe pribatuetan** (3); **erietxe psikiatriko** (5); **erietxe psikiatriko batean** (4); **erietxe publikoek** (3); **erietxean artatu** (7); **erietxean da** (3); **erietxean dago** (14); **erietxean daude** (7); **erietxean egon** (3); **erietxean eta** (5); **erietxean geratu** (3); **erietxean hil** (4); **erietxean hil zen** (4); **erietxean izan** (4); **erietxean jarraitzen** (3); **erietxean sartu** (8); **erietxean sartu zituzten** (3); **erietxean zegoen** (4); **erietxeetako arduradunek** (3); **erietxeetan eta** (5); **erietxeetara eraman** (4); **espetxeko erietxean** (5); **eta erietxe** (10); **eta erietxeak** (3); **eta erietxean** (4); **eta erietxeei** (3); **eta erietxeetako** (4); **eta erietxeetan** (5); **gurutzetako erietxean** (5); **hiriko erietxe** (4); **hiriko erietxe batean** (3); **hiriko erietxean** (4); **hospital erietxean** (3); **inguruko erietxe** (3); **inguruko erietxe batean** (3); **lagun erietxean** (3); **madrilgo erietxe** (4); **madrilgo erietxe batera** (3); **medikuaren erietxean** (3); **oreja medikuaren erietxean** (3); **paueko erietxe** (3); **pertsona erietxean** (3); **zen erietxean** (6); **zituzten erietxean** (3); **zuen erietxean** (4); **zuten erietxeetako** (3)

azaldu zuen erietxeko (3); **baionako erietxeko** (13); **baionako erietxeko langileek** (6); **baionako erietxera** (5); **basurtuko erietxeko** (4); **basurtuko erietxera** (7); **basurtuko erietxera eraman** (4); **basurtuko erietxetik** (3); **bat erietxera** (3); **bat erietxera eraman** (3); **berehala erietxera** (4); **berehala erietxera eraman** (4); **dituzte erietxera** (3); **donostiako erietxera** (4); **donostiako erietxera eraman** (4); **emakumea erietxera** (3); **eraman zituzten erietxera** (5); **eraman zuten erietxera** (7); **erietxeko arduradunek** (3); **erietxeko iturriek** (6); **erietxeko iturrien** (16); **erietxeko iturrien arabera** (15); **erietxeko langileak** (4); **erietxeko langileek** (8); **erietxeko medikuek** (4); **erietxeko zainketa** (3); **erietxeko zaintza** (3); **erietxeko zuzendariak** (3); **erietxera bidali** (3); **erietxera bidean** (3); **erietxera eraman** (127); **erietxera eraman behar** (31); **erietxera eraman zituzten** (20); **erietxera eraman zuten** (58); **erietxera eramateko** (3); **erietxera eta** (3); **erietxera iritsi** (4); **erietxera joan** (8); **erietxera joan behar** (5); **erietxera joateko** (5); **erietxetik irten** (3); **eta basurtuko erietxera** (3); **eta erietxeko** (3); **eta erietxera** (18); **eta erietxera eraman** (14); **eta erietxetik** (3); **gurutzetako erietxeko** (4); **gurutzetako erietxera** (11); **gurutzetako erietxera eraman** (8); **hadassah erietxeko** (6); **hiriko erietxeko** (3); **izan zituzten erietxera** (4); **izan zuten erietxera** (3); **lagun erietxera** (3); **lagun erietxera eraman** (3); **mar erietxeko** (3); **txagorritxuko erietxera** (5); **txagorritxuko erietxera eraman** (4); **zen erietxera** (5); **zituen eta erietxera** (3); **zituzten erietxera** (9); **zuen erietxeko** (4); **zumarragako erietxera** (3); **zumarragako erietxera eraman** (3); **zuten erietxera** (12)

---

erietxeratu, erietxera(tu), erietxeratzen du *ad* erietxera eraman.

Harridurarekin jakin genuen **eritetxeratu** zutela Jean-Louis Jauregiberri, Ibarla eta Duzunaritze artean dagoen Gamea ostatuko nagusia. Herria

---

erigarri **1** *izond* gaixotzen duena.

Legamia **erigarri** horretatik datoz kalte guztiak, gure pobretasunak, gure ezjakintasunak eta gure harrokeriak okerragotuak. Josu Zabaleta

Padura lurralde kiskalgarri, **erigarrietatik** datoz neska berezi horiek. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Haize hotz, **erigarria**. Edorta Jimenez

Uste dut behin baino gehiagotan hitz egin dizudala ohitura **erigarri** horretaz. Antton Olano

Bitartean, hantxe egon behar nuen etzanda, zain, neure beldurrarekin eta irudimen **erigarriarekin** bakarrik, neure odolak, apurka-apurka, gertatu zitzaidanaren edo gertatu ez zitzaidanaren istorioa kontatzen zuelarik. Oskar Arana

---

erigela *iz* eriak artatzeko gela.

Zangoan zeukala zauri bat; eta gartzelako **erigelan** bertan sendatu omen ziotela. Txillardegi

---

eriketari *iz* erizaina.

Baina aldi huntan karabineruak bidean izanki, Auritzeko gune hortan... Geldiarazten dixie gure **eriketaria**, beren argiak ezker eta eskuin ibilaraziz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

erikor **1** *izond* gaixotzeko joera duena.

Guztiek etsi zuten munduratu zuenaren bide beretik joatea alaba **erikorra** ere. Aingeru Epaltza

Hain zaharra, hain **erikorra**, hain ahula, eta beti ibiltzen, etengabe ibiltzen, beti hegan, beti jendeaz arduratuta. Jose Morales

Erran zahar batek dio: **erikor** dena, ez da hilkor! Herria

2 heriotza dakarrena.

Berton hartu zuen azken kafea Errusiako poeta handi Puxkinek, 1837ko urtarrilaren 27 ko iluntzean, hain zuzen ere buruz-buruko **erikor** hartara joan aurretik. Edorta Jimenez

---

erikortasun **1** *iz* erikorra denaren nolakotasuna.

Ez da heriotza eragiten duen gaitza, baina morbilitatea edo **erikortasuna** nabarmen handitzen da; gaitzak erasandako jende kopuruak gora egiten du, eta sintomak umekiak ere nabari ditzake. Berria - Euskal Herria

2 ***erikortasun tasa***

AEB Ameriketako Estatu Batuetan, esaterako, diabetesa da «**erikortasun** tasa handiena» duen gaixotasuna, Gaitzen Prebentziorako eta Kontrolerako Zentroen arabera. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Erakundeak jasotako azken datuen arabera, diabetesa da, Mendebaldean, «gaitzik iraunkorrenetako bat eta **erikortasun** eta heriotza tasarik handienetako bat» eragiten duen gaixotasuna. Berria - Gaiak

---

erio ik **herio**.

---

erion, **erioten** *du* ad jariatu.

Ikus orain irudiok zer aisa eta arin sortzen diren eta gauzetatik betiro **erioten** eta jareiten diren. Xabier Amuriza

Eztiak, ordea, izate sendoagoa eta likore nagiagoa dauka eta astiroago **erion** ohi da. Xabier Amuriza

Zeren baliteke mundu guztiaren argi iturri bakarra hantxe irekitzea eta argitasun ugari zabaltzea, beroaren elementuak mundu guztitik hantxe batzen eta haraxe jotzen dutelako, beroa sorburu bakar hartatik **erion** dadin. Xabier Amuriza

Zeren ura hain bulko txikiz mugitzen eta **erioten** bada, forma birakariz eta txikiz sortua delako baita Hortik eratzaten dituzte abereek euren gorputzak larre alaietan, gizenez astundurik, eta esne zuria **erioten** errape handituetatik. arima lohadar eta gorputzean diren bide bihurri eta poro guztietatik zehar **eriotean**. Xabier Amuriza

Itsaso barruan honelakoxea da Aradosko iturria ere, ur geza **erioten** eta inguruko uhin gaziak alboratzen dituena. Xabier Amuriza

Eguzkitik argi izpi berriak **erioten** baitira eta lehenengoak hil egiten dira, su aurrean irundutako artilea bezala. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erioten eta** (5)

---

erionarazi, erionaraz, erionarazten du *ad* jariatzera behartu.

Batetik haizeak bultz egiten dielako, eta bestetik hodei multzoak berak, kopuru handiagoan batuak, estutu eta goitik sakatzen eta euria **erionarazten** duelako. Xabier Amuriza

---

eriondo **1** *iz* eritasunaren ondorengo bizkortzea.

Aapez batek letren misterioak argitzen lagunduz gozatu zion **eriondoa**. Aingeru Epaltza

Eriondoak haurtzaroko garairik gozoenetakoak izaten ziren. **Eriondoan** nengoela, hezur eta azal, Grosrouvrek esan zidan behin: [...]. Ramon Saizarbitoria

Bazkaltzera gonbidatzen zituen **eriondoan** zeudenak, eta gaixoei behar zituzten gauzak oparitzen zizkien. Josu Zabaleta

Nehork ez du, kalte ordainaren itxaropenean, bere buruari kalterik egitea desiratuko, ez eta eritasunik irrikatuko, **eriondoaren** itxaropenean. Piarres Xarriton

Rositak eta Martinek solasaldi luzeak izan zituzten haren **eriondoan**. Koro Navarro

Ahul nago, ahul **eriondoan**... Josu Zabaleta

Zure ikaslea egongelan kausitu nuen jadanik, eriaren beztiduraz oraino, baina **eriondo** betean, eta nehoiz baino hagitz lirainago eta interesgarriago. Jon Muñoz

Behin, **eriondo** gozo haietako batean. Ramon Saizarbitoria

Martinen **eriondoa** oso lasterra izan zen, hain lasterra, non berari azkarregi sendatzen ari zela iruditu baitzitzaion. Koro Navarro

2 (adizlagun gisa)

Eriondo zebilelarik oraino Azpilkueta Barasoainen, otoiztu zuten bera sar zedin mende guztia gehien inarrosi zuen Carranzaren auzian. Piarres Xarriton

---

eriote *iz* jariatzea.

Lehenik gauza askok egon behar dute, eurotatik usain korronte aldakor bat uhinka erioteko modukoak, eta **eriote** hau denerantz igortzen eta zabaltzen dela pentsatu behar da; baina usain batzuk bizidunbatzuei hobeto egokitzen zaizkie, forma ezberdinak bide. Xabier Amuriza

Zergatik zagoz dudan arimaren indarrak, gure barren-barrenetik hara, keak bezala alde egiten duela eta, gorputza hondakin ustel bihurturik jausi bada, bere oinarriak hankazgoratu direlako dela, arima lohadar eta gorputzean diren bide bihurri eta poro guztietatik zehar **eriotean**? Xabier Amuriza

---

erisagar *iz* sagar mota.

Zonbeit urtez, 15000 sagarrondo dira landatuak izan, 30 hektaretan, mota hauek begiratuz: peatxa, eztika, anisa, mamula, **erisagarra**, ondo-motxa eta gordin-xuria. Herria

eristika *iz* eztabaidaren artea.

Bosgarrenik, hitzaldien lehiaketetako atleta modukoa da, **eristikaren** arteaz jabetu baita (Platon, Sofista, 231, d). Askoren artean

Zalantzak ez zuen Sokrates izutzen, sofistenak bezalako argudioekin jokatu ez arren, alegia ez zuen **eristika** praktikan jarri. Askoren artean

eristiko *izond* eztabaidari dagokiona.

Izenburua hala moduzkoa du: Dialektika **eristikoa**. Joxerra Garzia

eritasun **1** *iz* osasun egoera hondatzea. ik **gaixotasun; gaitz**.

Eria bere **eritasunean** laketzeraino erortzen den bezala. Aingeru Epaltza

Atzodanik eri da: **eritasunak** hain du biziro kolpatu, eta hain sintoma larriz da agertu, non zinez asaldatu bainaiz. Jon Muñoz

Jendea hiltzen ari da, **eritasunak** joa, munduko anitz tokitan, eta goseteak inoiz baino bortitzago eta gogorragoak dira. Pello Salaburu

Sarritan idiak eta beekari nagiak ere horrelaxe jotzen ditu gaitzak eta **eritasunak**. Xabier Amuriza

Intelektuala izatea ez da **eritasun** bat! Berria - Kultura

Gorrotoa eta bekaizkeria, harengan, **eritasun** ziren egiaz. Koro Navarro

Arga ibaia gainditzen duen zubia, Errabiaren zubia izendatua zen; erdiko harroinaren itzulia hiruetan egin behar zuten abereek, **eritasun** hori ez biltzeko. Piarres Aintziart

Eritasun bera izan zuen, bularrean, Nechemia errabinoaren amak. Koro Navarro

Bai bainekien **eritasunari** aurrea hartu behar zaiola, behin kutsatuz gero oso zaila delako sendatzen. Ramon Saizarbitoria

Batzuetan, labirintoa garunera lotzen duten nerbioak ebakitzen dira **eritasuna** tratatzeko. Irene Aldasoro

Indian ere bizkor zabaltzen ari da **eritasuna**. Berria - Gaiak

Opioak edozein **eritasun** senda zezakeela pentsatzen zen. Joseba Sarrionandia

Jainkoaren erregetzaren berriona hots egiten zuen eta gaitz eta **eritasun** guztiak sendatzen. Askoren artean

Ez diote **eritasunek** sendabideari amore ematen, non ez diren garaiz hartuak izaten. Jon Muñoz

Zurbil zegoen, **eritasun** baten sendabidean balego bezala. Koro Navarro

Garrod-en arabera, "metabolismoaren sortzetiko huts" baten ondorioa zen **eritasun** hori. Juan Garzia

Egia erran, Zekenkeria, Handinahia, Lizunkeria, etab. erokeria mota batzuk dira, nahiz ez diren **eritasunen** lerroan sartzen. Piarres Xarriton

Orain erasan zien **eritasunaren** antzeko batek hil zituen beretako erdiak berrehun urte lehenago. Anton Garikano

Bi urteren buruan, **eritasunaren** eraginez, hesteak atera zitzaizkion eta izugarrizko oinaze artean hil zen. Elizen arteko biblia

Eritasunek sortzen dituzten heriotzen % 90 aztertzeko, ikerkuntzako diruen % 10 bakarrik erabiltzen da. Pello Salaburu

Eritasunak okerrera egitekotan, neronek jarriko haut jakinaren gainean. Txillardegi

Gorputzaren **eritasunetik** arimaren osasuna ikas dezazun. Joan Mari Irigoien

Kontsumo alienatu eta konpultsiboa **eritasun** baten sintoma da, zibilizazio baten **eritasunaren** sintoma. Iñaki Heras

Nik, egun batez, istripuz edo **eritasunez** edo zaharreziaren zaharreziaz bizia galduko dudalarik, nahi dut ene gorputza errea izan dadin. Daniel Landart

Barkatzen ez duen **eritasun** baten ondotik utzi gaitu Etxesendako Bernadette-k. Herria

Alzheimerren **eritasuna**. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Joanden astean, **eritasun** luze baten ondotik, zendu da 62 urtetan Jean-Baptiste SARHY. Herria

Malenkonia eta munduaren higuina sarri izan ohi dira **eritasun** larriren baten sintoma aitzindariak. Jon Muñoz

Han eta hemen osasun ikerketan gastatzen den diru gehiena ez doa **eritasun** larrienen zergatiak eta sendatze bideak bilatzera. Pello Salaburu

Bilera hartara lagun espezialista batek sinatutako osasun-ziurtagiriarekin joan nintzen [...] non argi eta garbi adierazten baitzen gure neskak Crohnen **eritasun** kronikoa zuela. Joan Mari Irigoien

Harik eta **eritasun** ahitzaile, oinaze gabeko batez hiltzen nintzen arte. Koro Navarro

Nork esango zuen 1850ean, Pasteur-en eta Koch-en aurretik, **eritasun** kutsakorrak, azken batean, germen espezifiko batzuen erasotik zetozela? Juan Garzia

Polioa gaur egun munduko lau herrialdetan bakarrik da **eritasun** endemikoa. Berria - Gaiak

Eritasun sendaezina zuela. Edorta Jimenez

Oso **eritasun** bitxia zuela komunikatu zioten medikuek, Churg-Straussen sindromea delakoa. Iban Zaldua

Eritasun bortitz batek joa, erran zuen nahi zuela hobira zezaten berak eginarazi Orreagako elizan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eritasun infekziosoek sorturiko toxinak. Irene Aldasoro

Esate baterako, jaio aurretiko diagnostikoak haurraren **eritasun** hilgarriren bat iragartzen digunean. Juan Garzia

Tuberkulosi- edo psikosi-zantzuren bat zirudien, edo **eritasun** neurologikoren bat. Xabier Olarra

Japoniarrak gero eta gurin gehiago kontsumitzen duela eta gizentasuna eta **eritasun** kardiobaskularrak etengabe hazten ari direla Eguzki Berriaren herrian. Joxan Elosegi

Geneen funtzioari buruzko arrasto nolabaiteko bat medikuntzatik etorria zen, denborarekin **eritasun** genetikoaren nozioa bilakatuko zenaren eskutik. Juan Garzia

Pildoraz, abortuaz, **eritasun** sexualez. Ana Urkiza

GENE Gipuzkoako **Eritasun** Neuromuskularren Elkarteak antolatutako kongresu batean. Berria - Gaiak

Ezagutzen ditugu jada familia batzuk **eritasun** autosomiko azpiratzaileek latz astintzen dituztenak. Juan Garzia

Halakoak dira, besteak beste: Huntington-en korea (**eritasun** neurodegeneratibo hilgarri bat, zeinaren eragina ez baita nabaritzen); giltzurruneko **eritasun** polikistikoa, eta Alzheimer-en gaitza. Juan Garzia

-Nire **eritasun** psikomotorearen atala da hori ere. Joxan Elosegi

Beldur naiz **eritasun** krudel horrek kausa are krudelago bat ez ote duen. Jon Muñoz

Lehen bezala bizitzen jarraituko zuten gizakiek "oinaze-minen, neke gogorraren eta **eritasun** herio-ekarleen babesean". Juan Garzia

Nerbioetako **eritasun** bat, besterik ez, erantsi zuen berehala, dudarik gabe laster sendatuko zena. Koro Navarro

Ama Tiroleko hegoaldean hila zuan ordurako, han sortua eta haraxe babes bila joana baitzen azken urteetan, bihotzeko **eritasunetarako** erietxe batean bizkortzera. Xabier Olarra

Biriketako **eritasunak** direla eta Apoplegia ondoretasunezko **eritasuna** duk. Juan Garzia

Hemofilia **eritasun** hereditarioa da. Xabier Olarra

Ea probintzia hartan bazegoen gaitzen bat zabaldurik, hala nola sukar-epidemiaren bat, edonolako sukar hilgarririk, nafarreria edo bestelako **eritasunik**. Jose Morales

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bularretako gaitz batek eremaiten du Andere Mari, Dufilho medikuak bere **eritasun** denboran debekatzen dio haurretaz hurbiltzea, kutsadurarengatik. Michel Oronoz

Vatikanoak **eritasun** kasuetan kondoia nola erabili arautuko du idatzi batean. Berria - Gaiak

Morroi zintzoa dute burgesek Lombroso jauna, berba zientifikoak asmatzen ditu gure jardun politikoa **eritasun** mailara ekartzeko. Koldo Izagirre

Oso ongi ezagutzen baitira **eritasun** mota hauek gainditzeko bideak. Pello Salaburu

Huntington-en korearen gisako **eritasun** agertze berankorrekoen sintomei aurrea hartzea. Juan Garzia

Eritasun izurrite haundien beldurra zen uhaste eta heien inguruko hilketa, uren nahaste eta mila desmasietarik. Herria

Gizarte Segurantzaren zor handia gutxitzeko balio izan dezake **eritasun** aseguruari buruz abiatuko den negoziazioak. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan ixtripu, lan **eritasun** eta erretreta Kutxa (CRAMA). Herria

Infekzio **eritasunen** kasuan, adibidez, lehen Afrikara joaten zinenean han garatzen zenuen gaixotasuna, han inkubatzen zenuelako birusa. Berria - Gaiak

Ongi gogoan edukiko duzue zuek, asko eta luze hitz egin zen Edgarren gogo **eritasunaz**. Joxan Elosegi

Larru-**eritasun** ezezagun batek tumorrez estali zuen. Juan Garzia

Hezueriaz, humoreaz, eta juntura-**eritasun** guztietatik sendatua hago jadanik, Antton. Txillardegi

Medikuek zenbait urte zuela alzheimer **eritasuna** kausitu zioten. Itxaro Borda

Leukodistrofia **eritasunaz** joak direnen sustenguz. Herria

5 irud/hed

Nazionalismoaren gaitzak estatuaren **eritasunetik** datoz zuzen-zuzenean, haren ume dira. Iñaki Segurola

Uste dut, Euskal Herriak menderen mendeetan jasan eta jasanarazi duen bortizkeria politikoaren **eritasunaren** sendatzeko puntura helduak garela. Itxaro Borda

Egun izugarri haietan **eritasun** fisiko larria zen niretzat beldurra. Alberto Ladron Arana

Hizkuntzaren **eritasunetan** adituek metafora, metonimia, metatesi, analogia bezalako termino zehatzez argi ditzakete delituok. Koldo Izagirre

Kasino-ekonomiaren sortzetiko **eritasuna** ez ezik, *homo economicusaren* jaiotzetiko **eritasuna** da espekulazioarena. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere eritasun (3); **beste eritasun** (4); **da eritasun** (18); **den eritasun** (7); **dira eritasun** (4); **ditu eritasun** (3); **dituzten eritasun** (3); **du eritasun** (3); **duen eritasun** (19); **duen eritasun batek** (7); **duen eritasun tzar** (3); **dute eritasun** (3); **edo eritasun** (8); **eritasun bat** (16); **eritasun batek** (12); **eritasun batek ereman** (3); **eritasun batekin** (3); **eritasun baten** (9); **eritasun berarekin** (3); **eritasun berezi** (4); **eritasun berri** (3); **eritasun bortitz** (7); **eritasun bortitz batek** (5); **eritasun dorpe** (5); **eritasun edo** (5); **eritasun eta** (5); **eritasun ezin** (3); **eritasun gaixto** (6); **eritasun genetiko** (6); **eritasun guziak** (3); **eritasun guztiak** (4); **eritasun hau** (4); **eritasun hereditarioa** (3); **eritasun hori** (14); **eritasun horiek** (3); **eritasun horrek** (12); **eritasun horren** (12); **eritasun horren kontrako** (3); **eritasun horri** (3); **eritasun hortaz** (6); **eritasun hura** (4); **eritasun izurrite** (3); **eritasun kasuetan** (3); **eritasun labur** (8); **eritasun labur batek** (3); **eritasun labur baten** (3); **eritasun larri** (7); **eritasun larria** (4); **eritasun larriak** (4); **eritasun luze** (13); **eritasun luze baten** (8); **eritasun mota** (7); **eritasun txar** (3); **eritasun tzar** (6); **eritasun tzar batek** (3); **eta eritasun** (20); **eta eritasun guztiak** (3); **ez duen eritasun** (17); **gaitz eta eritasun** (3); **hemofilia eritasun** (3); **hemofilia eritasun hereditarioa** (3); **heriotze eritasun** (4); **heriotze eritasun luze** (3); **izan da eritasun** (3); **zen eritasun** (3)

alzheimer eritasuna (4); **alzheimer eritasunak** (4); **alzheimerren eritasuna** (5); **bere eritasuna** (4); **bere eritasunaren** (3); **da eritasunaren** (3); **du eritasuna** (6); **dute eritasuna** (3); **duten eritasuna** (3); **edo eritasunez** (3); **eritasuna da** (6); **eritasuna dela** (4); **eritasuna eta** (4); **eritasunak ereman** (3); **eritasunak eta** (8); **eritasunak ez** (3); **eritasunak jo** (4); **eritasunak joa** (3); **eritasunaren aurka** (3); **eritasunaren aurrean** (3); **eritasunaren eta** (3); **eritasunaren gatik** (6); **eritasunaren inguruko** (3); **eritasunaren kontra** (3); **eritasunaren kontrako** (5); **eritasunaz joak** (5); **eritasunen bat** (4); **eritasunez edo** (3); **eritasunez joa** (3); **eta eritasuna** (4); **eta eritasunak** (9); **eta eritasunaren** (5); **ondoretasunezko eritasuna** (3)

---

eritegi *(210 agerraldi, 26 liburu eta 73 artikulutan; ETCn 467 agerraldi)* **1** *iz* erietxea. ik **ospitale**.

Jakinez geroz odola falta dutela **eritegi** eta ospitaleetan, egin dezagun indar bat, gurearen eskaintzeko. Herria

Donostiako Arantzazu **eritegian** sartu zuten. Gotzon Garate

Pomfrey andreak **eritegian** egonarazi zuen Harry asteburu osoan. Iñaki Mendiguren

Ez nekien ospitale-**eritegia** non zen, baina aurkituko nuelakoan nindagoen. Marzel Etxehandi

Eritegia areto luze argitsua da, garbitasun handia dago hemen. Koldo Izagirre

Eritegira noa, ea ezinegon honi sendabiderik ematen dioten, galduko naiz bestela. Anjel Lertxundi

Behin saihetsak puskatu eta **eritegira** eraman zuten. Gotzon Garate

Santa Mariara heldu zirenean, **eritegira** eraman eta bertan atseden hartzen utzi zuten. Askoren artean

Eritegira noa, ea ezinegon honi sendabiderik ematen dioten, galduko naiz bestela. Anjel Lertxundi

Ezkontetxera bihurtu zenean, amaginarreba gaizki esaka, lepotik heldu eta burua hormaren kontra jotzen hasi zitzaion, haurdun nork daki zeinek eginik izango zela eta **eritegian** berariaz haurra galdu egin zuela. Gotzon Garate

Eritegietan ez dute xamur jokatzen abortua egiten dutenekin. Joxan Elosegi

Bertako **eritegian** eginen dugu odol ematea. Koldo Izagirre

-Weasley, hobe duzu **eritegira** joatea, odola darizu eta. Iñaki Mendiguren

Eritegiko areto ilun batean zetzan. Iñaki Mendiguren

Ezin zuen burutik kendu Hermioneren irudia, **eritegiko** ohean etzanda, harrian zizelkatua balego bezala. Iñaki Mendiguren

Eritegiko pixontziak garbitzea. Iñaki Mendiguren

Bellevue **eritegiko** sendagileek nekez josi zizkioten bi puskak. Gotzon Garate

Eritegirat altxatua izan da eta hor pausatu da 69 urtetan. Herria

2 (izenondoekin)

Munduko **eritegirik** handienetako bat da (Bill Clinton hortxe operatu zuten). Gotzon Garate

Sendagile hauek, giltzurrunak kentzeko eramaten zuten jende pobrea **eritegi** pribatuetara. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baionako eritegi (4); **batekin eritegirat** (3); **egon zen eritegian** (3); **eritegi batean** (13); **eritegi batetan** (3); **eritegian eman** (3); **eritegian sartu** (3); **eritegiko atea** (3); **eritegira eraman** (16); **eritegira eraman eta** (3); **eritegira eraman zuten** (5); **eritegira joan** (5); **eritegirat altxatua** (7); **eritegirat altxatua izan** (4); **eritegirat altxatua zen** (3); **eta eritegiko** (3); **eta eritegira** (3); **izpurako eritegian** (5); **urtetan izpurako eritegian** (3); **zen eritegian** (3)

---

eritoblasto *iz* globulo gorri mota, zelula gunea mantentzen duena.

Duela bi urte lortu genuen saio-hodian globulu gorrien aitzindari diren **eritoblastoak** kopuru handitan sortzea. Berria - Gaiak

Eritoblasto horiek hematie bihurtzeko prozesuan ezin izan zuten aurrera egin. Berria - Gaiak

Eritoblastoak hematie bihurtzeko prozesua abiatzeko hezurretako muinean ematen den seinale kimikoa zehazki zertan datzan identifikatzea. Berria - Gaiak

Gero, erretikuluzito bihurtzen dira **eritoblastoak**, eta odolera pasatzen dira. Berria - Gaiak

---

eritrear *izlag/iz* Eritreakoa, Eritreari dagokiona.

Hilabete inguru egin genuen Akademian elkarrekin bi taldeek, **eritrear** etorri berrienak eta gu beterano trukuenak. Joxerra Garzia

Yerek Asmeron **eritrearra** izango da faborito nagusia Areeta-Bilbo proban. Berria - Kirola

Ez dira izango Lebidek izango dituen aurkari bakarrak: Tesfayohannes Mesfen **eritrearra** eta John Cheruiyot Korir kenyarra ere aurrean egongo dira. Berria - Kirola

---

eritropoietina *iz* globulu gorrien ekoizpena eragiten duen hormona glikoproteinaduna.

EPOa (**eritropoietina**) gorputzak berez sortzen duen proteina da, giltzurrunak nagusiki. Berria - Harian

Munduko Dopinaren Aurkako Agentziak (WADA) azken urteetan bere lorpenik arrakastatsuenetako bat izan du kirolariengan rEPOa **eritropoietina**) atzemateko testa. Berria - Harian

Baldintza horretan antigorputz horiek ez dutela rEPOa eta EPOa (gorputzak berez sortzen duen **eritropoietina**) ondo bereizten dio Bekeren defentsak, ezta rEPOa eta beste proteina batzuen artean. Berria - Harian

---

eritu, eri, eritzen **1** da *ad* gaixotu.

Eritu nintzen, eta uda guztian egon nintzen eri. Fernando Rey

Beste bat, auzo herrikoa, ene mendia kasik alde beretik ikusten zuena: **eritu** zen eta bide bazterrean hila atzeman zuen bere anaiak. Piarres Aintziart

Esaldi hau irakurtzen ari zaren bitartean beste zortzi-hamar bat lagun **eritu** dira HIESak jota, normalean 15 eta 24 urteen artekoak gehienak. Pello Salaburu

Eritu delarik, galdegin du apeza, hunen eskutik hartu sakramenduak ezagutza osoan. Herria

Ipar-Ameriketan alabainan, badira **eritu** direnak, hil direnak ere ba, molde berean ukan errautsean bazelakotz ugalatzaren hazia. Herria

Gaitz haiek jende anitz hiltzen zuten K.L.-etan eta, bereziki, **eritzen** zirenak ez ziren lanerako gai. Eneko Bidegain

Maite oporretan zelarik, ama **eritu** zitzaiola. Janbattitt Dirassar

Atikan hankak eta Akaiako bazterretan begiak **eritzen** dira. Xabier Amuriza

Gaur egungo gure arazoak ez dira langabezia arazoak bakarrik; lan batzuen ondorioz **eritzen** ahal gara. Berria - Euskal Herria

Krisi espiritual batean erori zen eta nerbioetatik **eritu** . Oskar Arana

Eta orain ikustean -izutu zen oso, bidenabar esan, etxera hain derrepente sartu nintzenean- berehala konturatu nintzen zein **eritua** eta zein zahartua zirudien. Matías Múgica

Klitia gajoa, ume bat baino askoz gehiago ez oraindik, txundituta geratu zen Helios jainkoaren edertasun eta dohainengatik eta, maitasunak **eritua** eta ahuldua, zentzua ia galdurik geratu zen, ezer zuzenik egiteko ezgai. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hura ere maiteminak **eritua** zela eta bihotza urratua zuela jakin zuelarik, ez zuen zalantzarik izan eta berriro ere bideari lotu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Eritutako hegaztiak agertu ziren orain bi aste Charsadah eta Abbotabad barrutietan, Hobera egin dute Erresuma Batuan saio kliniko baten **eritutako** sei gizonezkoek. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo gisa)

Londres hamaika aldiz bonbardatuan, izuaren mende bizi zen Londresen, gizonak eta iskiluak hil ala biziko batailarako prestatzen diharduen Londres **erituan** . Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ama eritu (3); **eritu delarik** (4); **eritu eta** (6); **eritu zen** (8); **eritu zen eta** (4)

---

eritxi ik **iritzi**[1].

---

eritze *iz* gaixotzea.

«Biek finantzatzaile bera dute, **eritze** asurantza», argudiatu zuen ministroak. Berria - Euskal Herria

---

eritzi ik **iritzi**[1].

---

erixka *izond/adlag adkor* eri samar. ik **erixko**.

Batzuen beldura, gauzak oraino makurrago joanen direla, ekonomiaren mundu hori arrunt **erixka** dagoelakotz. Herria

Denboran, ospitale deitzen baitziren bidez-bide zabilan jendeari aterbea segurtatzen zuten etxe batzu, ezinduak edo **erixka** zirenak nolazpait artatuz. Herria

Giro pisua eta nahasia! Ekonomia **erixka** , turismoa ere ez goiti ari, hango abertzaleak arrangura deus aitzinamendu ez dela ardietsi azken bi urte hotan, presoen hurbilketak ere luzatzen duela. Herria

---

erixko *izond/adlag adkor* eri samar. ik **erixka**.

Erixko nengoela erran nion telefonariari, mezua Eskalatzaileari jakinarazteko erreguarekin batean. Aingeru Epaltza

Zeruari dei egiten nion Ixabel txikia **erixko** egon ez zedin edo harresiak zaintzera igor ez nintzaten. Aingeru Epaltza

Eta halaxe egoki, **erixko** buru eta bihotz. Aingeru Epaltza

---

erizain **1** *iz* eriak zaintzeko bizibidea duen pertsona.

Goio **erizaina** da ogibidez, Barakaldoko Cruces ospitalean lan egin zuen hiruzpalau urtez, Iparraldera alde egin orduko. Joseba Sarrionandia

Hamalau **erizainek** lan egiten omen dute, hogei gaixo omen daude internaturik, eta ikusi ditugu **erizainak** beren bata zuriekin, eta gaixoak beren begi larriekin. Joseba Sarrionandia

Zortzietan, **erizain** bat etorri zitzaidan tenperatura hartzera. Oskar Arana

Anestesia gehiago behar zuen, eta **erizainak** flasko bat luzatu zion xiringa betetzeko. Xabier Olarra

Janzten nintzen bitartean denak saiatu ziren han geldi nendin, medikua, **erizaina** eta erizainburua. Xabier Olarra

Apirilean, parropietan, eri, **erizain** eta eri artatzaileen eguna. Herria

Euskarak errexten eta hobetzen ahal baiditu erien eta **erizainen** edo medikuen arteko harremanak. Herria

Ospitaleko kirofano ondoko gelan da, sendagile eta **erizainez** inguraturik. Jose Angel Irigaray

Herriko medikua eta **erizaina** arduratuko ziren aurrerantzean gaixoaz. Imanol Zurutuza

Nazio Batuen Erakundearen arabera, 100.000 pertsonako 4 mediku eta 28 **erizain** edo emagin daude. Berria - Harian

Badatoz **erizaina** eta bi zomorroi. Koldo Izagirre

Desesperaziozko oihu lazgarrienak haur negarti baten lanturu bihurtzen dira, **erizaina** eriaren gelan sartu orduko. Anjel Lertxundi

Mariak, bitartean, **erizainari** deitu eta bien artean eseri zuten ohean, hankak dilindan. Unai Elorriaga

Crouseko **erizainak** injekzio bat jarri zidan arratsaldean komentariorik egin gabe. Joseba Urteaga

Erizainek zunda baten bidez elikatzen dute. Berria - Gaiak

Batez, obramenduetarako premiatu zelarik, **erizain** bati deitu zion komunera eraman zezan, eta **erizainak**, ohi bezala, komunaren gainean jarri zuen. Anjel Lertxundi

Pomprey andrea, **erizainen** burua, emakume atsegina zen, baina oso zorrotza. Iñaki Mendiguren

ik erizainburu.

Egun gutxi batzuetan zoroetxe batean zer gertatzen den kontatzen digu Andreievek: zoroen, doktorearen eta **erizainen** arteko harremanak, zoroen izaera eta bakoitzaren zorotasuna. Jose Morales

Gaixo ohi askok **erizainenganako** miresmen ia maitemindu baten oroitzapena azpimarratzen dute, **erizainaren** lana halako amatasun babesgarri baten argitan ederturik. Anjel Lertxundi

Erizainaren bularreko plakatxora zeharbegirada bat lerratzen saiatu da, baina gaizki begiratu dio emakumeak. Harkaitz Cano

Adeitasunaren zerga ordaindurik, **erizainak** badaki gaixoaren ia protestak oro indargabetuko dituela, bere esku eta mende daukala gaixoa. Anjel Lertxundi

SATSE **erizainen** sindikatuak eta UGTk berretsi dute, une honetan, negoziazio mahaia itxita dagoela. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako **Erizainen** Kolegioko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erizain berritsuek. Hasier Etxeberria

Erizain tituluduna zen Wilmarth andereñoa, miragarriro trebea. Mirentxu Larrañaga

Chavezen **erizain** pertsonala da. Pako Aristi

Ez dirudi **erizain** jagoleari grazia handirik egin dionik. Mirentxu Larrañaga

Gaixoen zerbitzura dagoen pertsona, **erizain** hutsa. Urtzi Urrutikoetxea

Bioetika arazo batek asaldatu ditu bigarren plantako **erizain** bihozberak. Patxi Iturritegi

Arnasestuka, lasterka zebilen gelan barrena, guztiak iraintzen: klinika, begiraleak eta **erizain** lokartua. Jose Morales

Gaueko **erizaina**, ile urdinduko emakume bat, nire gelara itzuli zen eta nire oheburuaino hurbildu zen isilik. Joseba Urteaga

Zaharrei begiratu bat egin eta ekartzeko berehala neurologoa, traumatologoa eta pare bat kirurgialari, esan nion larrialdietako **erizainari**. Koro Navarro

Aisialdietarako **erizaina**! Anjel Lertxundi

Alboan, mantal zuridun **erizainak** edo, kontrastean, senide-lagunak kale-jantzian. Anjel Lertxundi

Bi **erizain** emazte hilak, itsuski kolpatuak biak, batek lepoa moztua. Herria

Ahoz gora etzanda nago eta **erizain** andreak txaplatak jartzen dizkit. Itziar Otegi

3 (izenondo gisa)

Bi emakume **erizainen** gorpuak atzo goizean aurkitu zituzten. Berria - Mundua

4 (adizlagun gisa)

Erizain igorri zuten ez dakit nongo kanpalekura, eta han hil zen zenbait hilabeteren buruan. Marzel Etxehandi

Erizain egon zen Londresko periferiako ospitale batean. Mikel Hernandez Abaitua

Ni Gurutze Gorriko **erizain** joan ninteke. Lopez de Arana

Etxetan **erizain** ibiltzen zen, arras maitatua zen. Herria

Prostitutek **erizain** jardun zuten Dien Bien Phuko borrokako azkenaldian, soldadu frantsesen plazeraren zerua oinazearen infernuan amildu zenean. Berria - Mundua

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erizain bikote baten artean zeramaten Nikos eta anbulantzian sartu zuten. Iñaki Zabaleta

Aurreko bi egunetan, bera aritu zen konorterik gabea artatzeko **erizain**-lan esker txarreko eta nekosoetan. Mirentxu Larrañaga

Erizain ikasketak burutzen dituenean, Suitzara jotzen du, bere aitaren lagun batzuek aholkatuta, eta biriketatik gaixo daudenentzako sendategi batean hartzen du lanpostua. Josu Zabaleta

17 urte zituen, eta klinika-laguntzaile izateko ikasten ari zen; gero, **erizain**-titulua atera nahi zuen. Juan Kruz Igerabide

Zerbait istripu izaitera, Paul Bert lizeoko kiroldegian **erizain** postu bat zabalik dago besten denbora guzian. Herria

Zure **erizain** soldataren marea erdia ordainduko dizu. Joseba Sarrionandia

Lurrean botata, **erizain**-mantal zuri bat. Anjel Lertxundi

Zure **erizain** soldataren marea erdia ordainduko dizu. Joseba Sarrionandia

Aleman **erizainak** zerbait izkiriatu zuen kartoin puxka batean eta eni eman. Marzel Etxehandi

Belgikako sorosleei laguntza ematera joan zen, halaber, Frantziako iparraldeko hiri askotik larrialdi zerbitzuetarako mediku eta **erizain** andana. Berria - Mundua

Ate baten zirrikitutik zeladore eta **erizain** talde bat bereizi du, pastatxoak jaten eta xereza edaten, algaraka. Harkaitz Cano

-Datorrela hona anbulantzia bat **erizain** pare batekin. Koldo Izagirre

Laster ikasi nuen hemen ohikoa zela, behar izatekotan, gu baino apur bat zaharxeagoa zen gazte bati, **erizain**-laguntzaile moduko bati, hots egitea. Urtzi Urrutikoetxea

Bazen Jerusalemen fraide lagundia bat beilari eta erromeseri mota guzien artatzeko, geroago "Joani Sainduaren **Erizain** konpainia" bilakatu zena. Herria

Mediku, **erizain** eta emagin eskasiaz ohartarazi du OMEk. Berria - Gaiak

6 (hitz elkartuetan elkarketa kopulatiboetan)

Gaixo kronikoentzako erietxeak, urtetan bizi izaten direnez hantxe elkarrekin gaixoak eta mediku-**erizainak**, herri edo hiri txikien antzekoak izaten dira. Xabier Olarra

Oroitzeko gaitasun inplizitu horrek bide ematen zion apurka-apurka erietxearen planoaz eta errutinez jabetu eta mediku-**erizainetako** batzuk denboraren poderioan ezagutzeko. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste erizain (3); **bi erizain** (8); **erizain bat** (26); **erizain bat etorri** (4); **erizain bat sartu** (3); **erizain batek** (20); **erizain batekin** (3); **erizain baten** (7); **erizain bati** (8); **erizain edo** (6); **erizain eta** (16); **erizain gisa** (4); **erizain hori** (3); **erizain talde** (4); **erizaina ere** (3); **erizaina eta** (7); **erizaina ez** (3); **erizaina zara** (3); **erizaina zen** (4); **erizainak eta** (11); **erizainak ez** (4); **erizainari deitu** (3); **erizainek eta** (5); **erizainek ez** (3); **erizainen aurkako** (3); **esan zuen erizainak** (7); **eta erizain** (26); **eta erizain bat** (3); **eta erizain batek** (3); **eta erizain talde** (3); **eta erizaina** (5); **eta erizainak** (26); **eta erizainaren** (4); **eta erizainei** (9); **eta erizainek** (8); **eta erizainen** (7); **mediku eta erizain** (4); **mediku eta erizainei** (3); **medikuak eta erizainak** (4); **urte erizain** (3); **zidan erizainak** (3); **zien erizainei** (4); **zion erizainak** (3); **zion erizainari** (3); **zuen erizain** (3); **zuen erizaina** (4); **zuen erizainak** (11)

---

erizainburu *(orobat **erizain-buru**) iz* erizain talde baten burua.

Janzten nintzen bitartean denak saiatu ziren han geldi nendin, medikua, erizaina eta **erizainburua**. Xabier Olarra

Harryk ezer erantzun baino lehen, kas-kas jo zuten atea eta Pomfrey andrea, **erizainburua**, barrura sartu zen bizi-bizi Aleman **erizain-buru** bati presentatu hark zuen erabaki behar. Iñaki Mendiguren

Gaizki zen zinez, hainbestetaraino non ez bi mediku holandesek ez eta **erizain-buruak** ez baitzuten uste bizirik ateratuko zela. Marzel Etxehandi

Berari askoz zauri txarragoak sendatu baitzizkion **erizainburuak** magiaz. Iñaki Mendiguren

---

erizaindegi *(**38** agerraldi, **6** liburu eta **22** artikulutan; ETCn **383** agerraldi) iz* erietxea. ik **eritegi; ospitale**.

Beherean, administrazio bulegoak, liburutegia, jangela, sukaldea eta **erizaindegia**, besteak beste. Herria

Merkurokromo eta ukendu bat ipini zioten eskolako **erizaindegian**, baina ez zen aski izan. Juan Kruz Igerabide

Arratsaldea ere goiza bezain luze baitzetorkion, noski, **erizaindegian** zain zeuzkan barneko gaixoak zirela eta. Xabier Olarra

Asteburuan **erizaindegian** sartu ziren beste bi jokalariek, berriz, lan saio berezia egin behar izan zuten. Berria - Kirola

Erizaindegiaren aurrean gelditzeko esan zion soldaduak. Felipe Juaristi

Athleticen **erizaindegia** husten hasi da. Berria - Kirola

Jasotako kolpeen ondorioz, espetxeko **erizaindegira** joan behar izan zuten bi presoek. Berria - Euskal Herria

Erasoaren ostean, **erizaindegira** eraman zezaten eskatu zuen Akarregik. Berria - Euskal Herria

---

erizaingo *iz* erizaintza.

Yvette Oçafrain aldudar gazteak ardietsi du **erizaingo** etsamina,"DEI" delakoa. Herria

---

erizaintsa *iz* emakumezko erizaina.

Gerla denboran **erizaintsa** gazte baten laguntzen muga pasatzen. Michel Oronoz

---

erizaintza 1 *iz* erizainaren ogibidea edo lanbidea.

Apaiz egin aurretik, **erizaintza** ikasi nuen. Juan Kruz Igerabide

Estatuko funtzio publiko ezberdinetan, zein jendarmerian, zein irakaskuntzan, zein **erizaintzan**. Itxaro Borda

Medikuntzan eta **erizaintzan** egin duten bezala, irakaskuntzan laguntza sareak sortu behar lituzkete irakasleek. Berria - Euskal Herria

Erizaintzako ikasle bat. Juan Kruz Igerabide

Alabak, **erizaintzako** azterketak baitzituen Triesteko unibertsitatean, semea zaintzeko eskatu zion. Berria - Kultura

Giro lasai horretan ematen genuen egun gehiena: ni **erizaintzako** liburuekin, eta bera bereekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Gipuzkoako **Erizaintzako** Elkargoak adinekoen inguruko ikerketaren ondorioak aurkeztu ditu. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Naonedeko espetxeko **erizaintza** zerbitzuak Iparragirreren osasun egoera kontrolatu behar zuen, ospitalera eraman behar zuten ala ez erabakitzeko. Berria - Euskal Herria

Erizaintza Eskolan matrikulatu zen, eta ilusio handiz hasi zituen ikasketak. Juan Kruz Igerabide

Adierazpenok atzo egin zituen Peredak, EHUko **Erizaintza** Eskolakoekin batera egindako agerraldian. Berria - Euskal Herria

Alboan, Maximo Gonzalez Jurado izan zuen, Espainiako **Erizaintza** Kontseilu Nagusiko lehendakaria. Berria - Euskal Herria

Donostian, **Erizaintza** eta Justizia jardunaldietan. Berria - Euskal Herria

3 erizaindegia.

Hildako bost pertsonak zentroko **erizaintzan** zeuden, eraikineko lehen solairuan. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ehuko erizaintza** (3)

---

erizpide ik **irizpide**.

---

erkagarri *izond* erka daitekeena.

Estudio sinkronikoan erabilitako gertaerak eta hatsapenak, badira **erkagarriak** gaur egungo hizkuntza bantu baten deskribapenak ageriratuko lituzkeenekin. Isabel Arrigain

Izan ere, bokal baten formula puntuz puntu **erkagarria** da edozein kontsonante ahostunarekin. Isabel Arrigain

Erkagarria da erabat ondoko formula honekin: [...]. Isabel Arrigain

---

erkaketa 1 *iz* erkatzea.

Horretarako erabiliko dituzu: jaso duzun informazioa, hari buruzko analisia (kontrastazioa, eztabaida, **erkaketa**...), konbentzitzeko teknikak, ikuspegi berriak, etab. Askoren artean

Erkaketa horretan ez ditugu kontuan hartu herrien artean dauden biztanleko errenta desberdintasunak, baina gogoan izan bagenitu, oso antzekoak izango lirateke ondorioak, zalantza gabe. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aitzitik, pentsarazten diguna aniztasuna da, desberdintasuna, **erkaketa**. Askoren artean

Libre zeukan eskua masailezurrera eroan zuen, besteekiko **erkaketan** zeukan bixar falta ezkutatu guran. Josu Landa

Erlijio arteko **erkaketa** abiapuntu gisa hartuz, Islamaren funtsezko oinarriak aztertzeko gakoak hizpide izan zituen atzo Xabier Andonegi Mendizabal Donostiako Erlijio Zientzien Goi Ikastegiaren Zuzendariak. Berria - Euskal Herria

Filiazio-ahaidetasuna, bigarrenik, hastapenetik oinarritu baita eboluzioaren teoria formen arteko erlazioetan, geruza geologiko bateko edo besteko izatean, enbrioi-garapenen **erkaketan**. Juan Garzia

2 (hizkuntzalaritzan)

Erkaketa, gramatika konparatuarentzat, iragana berregiteko bitarte bat baizik ez da. Isabel Arrigain

Erkaketa ez dela gertaerak berreraikitzeko bitarteko bat -azterbide bat- baino. Isabel Arrigain

Erkaketa, beti, hizkuntza formen berreraiketa izango da. Isabel Arrigain

Erkaketa, dudarik gabe, edozein berreraikuntza historikoren ezinbesteko baldintza da. Isabel Arrigain

Izenaren formen multzoa, soilik forma desberdinei loturiko funtzioen **erkaketari** esker bihurtzen da flexio paradigma. Isabel Arrigain

3 (izenondoekin)

Ezpain-margo baten kalitatea horrela bakarrik neur daiteke, **erkaketa** praktiko batez. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erkaketa-paragrafoa: kontrasta dezazun edo analogiak egin ditzazun, bi tesi, argudio, judizio, ikuspegi edo ikuspuntu jartzen dituzu bata bestearen aurrean. Askoren artean

Azterketak, gainera, teoria eskatzen digu, diskurtso bat sortzea, enuntziatu, judizio eta guzti: **erkaketa**-judizioak, judizio arau-emaileak, deskribapen-judizioak, etab.

Askoren artean

Hizkuntza osatzen duten fonetika mailako eta kontzeptu mailako desberdintasunen multzoa, bi **erkaketa** moten ondorioa da. Isabel Arrigain

Erkaketa kopuru amaigabea egin ditzakegu, hizkuntza desberdintasun horiei esker. Isabel Arrigain

Hitz bateko analisia, **erkaketa** multzo baten batuketen emaitza denez, garbi dago une guztietan terminoaren elkartze eremutik mendean dagoela azterketa. azterketak, gainera, teoria eskatzen digu, diskurtso bat sortzea, enuntziatu, judizio eta guzti: **erkaketa** -judizioak, judizio arau-emaileak, deskribapen-judizioak, etab. Isabel Arrigain

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntza **erkaketa** , beraz, ez da eragiketa mekaniko bat. Isabel Arrigain

Hizkuntza **erkaketa** da ezinbestekoa gertaera orokor asko -diakronikoak zein sinkronikoak- nolabaiteko erraztasunez azaldu ahal izateko. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arteko erkaketa (3); **erkaketa horretan** (4)

---

erkal *iz* errepublika.

Gudan bat egin geneuan abertzale guztiok, eta sozialista, komunista eta anarkistakaz be batu gintzuazan, **Erkala** edo Errepublika defenditzeko. Juan Luis Zabala

---

erkametz *iz* erkiaren eta ametzaren baturatik sorturiko zuhaitza.

Arbola baten gerizpea aprobetxatu (artea ote da?, **erkametza** ?) eta ezpondan geratu da eserita, arnasari buelta emateko, bilaketaren tentsioaz une batez ahazteko. Xabier Mendiguren Elizegi

---

erkamezti *iz* erkametz basoa.

Zaldiaran eta Cuervo mendiak, Eskibel-Gometxa muinoa, San Migel muinoa, Subijanako larrea, Armentiako basoa eta Andollu eta Puente Altoko muinoetko **erkameztiak** , besteak beste. Berria - Euskal Herria

---

erkarazi, erkaraz, erkarazten du *ad* erkatzera behartu.

Erreformak [...] bakoitza bere kontzientziatxo indibidualarekin Jainkoaren aurrez aurre zuzenean jarriz, Elizaren bitartekaritzarik gabe, gizon-emakumea bere baitara itzularazi du, eta "zer zara zu" galderarekin sakonki **erkarazi** alegia, "zein da zure izatea eta patua". Askoren artean

---

erkastu, erkats, erkasten **1** du *ad* erlastu, marrantatu.

Lau lerro hurbil zituelarik (lautan hogehitara arrimaturik alegia) boza higatu, **erkastu** eta kraskatu bezala zitzaion: halare aintzina ari zen kantuz, marraka dardarikatsu batean! Patziku Perurena

2 (era burutua izenondo gisa)

Azken urteetan boza makurra eta **erkastua** , bikarioa partida zuen Michel Oronoz

---

erkatu, erka(tu), erkatzen **1** du *ad* berdintasunak eta desberdintasunak aztertu. ik **alderatu; berdindu; konparatu**.

Orain ezin zituen katalogotik erauzitako argazkia eta berria **erkatu** , gau hartaz geroztik Pasaiako bere apartamentuko ispiluan erantsitako argazkietako bat eta postala falta baitziren. Harkaitz Cano

Metodoaren bitartez bikoteak **erkatzen** zituen, bi objektu, bata artelana eta bestea ez, baina biak begiz bereiziezinak. Askoren artean

Ezaugarri hau ondo ulertzen da, mintzairatik at harturiko gertaera batzuk **erkatzen** baditugu. Isabel Arrigain

Tesiaz baliatzen diren bi ikusmolde desberdinen aldeko eta kontrako frogak **erkatu** . Askoren artean

Afiliatuen zerrenda eta galdeketaren emaitzak **erkatu** eta egiaztatu zuten ordainketa guztiak egunean zeudela. Berria - Ekonomia

Paper orri batekin **erka** dezakegu hizkuntza: pentsamendua aurkia litzateke, eta hotsa ifrentzua. Isabel Arrigain

Xakearekin **erkatzen** badugu, hobe ulertuko dugu kontu hori. Isabel Arrigain

Alde honetatik, hizkuntza, sinfonia batekin **erka** dezakegu. Isabel Arrigain

Gauza bera gertatu ohi da beheko naturarekin, goikoarekin **erkatuz** gero. Joan Mari Lekuona

Euskararekin gertatzen dena, zerbaitekin parekatzekotan Ameriketako Estatu Batuetako zenbait lekutan gaztelaniarekin gertatzen denarekin **erkatu** beharko genuke. Pello Salaburu

Arabidopsis thaliana izenekoa da belar hau, oso organismo sinplekoa, 5 kromosoma pare baizik ez baitu, baina gero beste landareekin aski erraz **erkatu** daitekeena. Pello Salaburu

Ahalegintzen dira egileak hausnarketa sistemaren osotasunaren gainean egiteko, eta munduko beste unibertsitateetan gertatzen denarekin **erkatzeko** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zure literatura beste arte batekin **erkatu** beharko bazenu, zerekin lotuko zenuke? Ana Urkiza

Gorputz batek plano baten gainean egindako proiekzioaz **erka** dezakegu. Isabel Arrigain

Erkatu "txistukaria ez da ahoskatzen aditz laguntzailearen aurrean" vs. "txistukaria ez da ahoskatzen kontsonante ozenaren aurrean". Lourdes Oñederra

2 (hizkuntzalaritzan)

Hirugarren aldia hasi zen hizkuntzak beren artean **erka** eta aldera zitezkela ikustean. Isabel Arrigain

Bi hizkuntza semitiko, berreraikitako protosemitikoarekin **erkatzen** ditugunean, harrigarria gertatzen da lehen begiratuan nola iraun duten ezaugarri batzuek. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
artean erkatzen (3); **erkatu beharko** (3); **erkatu zituen** (3); **erkatuz gero** (12); **erkatzen baditugu** (8); **erkatzen badugu** (7); **erkatzen baldin** (4); **erkatzen baldin badugu** (4); **erkatzen ditugunean** (3); **erkatzen zituen** (3)

---

erkatze *iz* berdintasunak eta desberdintasunak aztertzea.

Iritzi honen egokitasuna, mota askotako teorien **erkatze** eta garapenaren bitartez bakarrik baiezta daiteke. Itziar Laka

Ez bilatu gauzen zergatia: **erkatzearen** eremuetan gal zaitezke! Itxaro Borda

Erkatzeari utzi eta bakartasuna altxor kontsideratu zuen. Itxaro Borda

- **Erkatze** -azterlana deitzen zaiona eginez, alegia. Oskar Arana

Dardara batean jartzen gara pentsatze hutsarekin almuedanoaren egunsentiaren deskribapen horrek gehiegizko tokia har lezakeela egilearen testu zientifikoan, biak direlarik, bai egilea eta bai testua ere, azterketa zehatzen, ikerketa sakonen eta **erkatze** zorrotzen fruitu. Jon Alonso

---

erkide *izond* **1** guztiek edo gehienek batera dutena, guztiei edo gehienei dagokiena. ik**komun**[1].

Grotiusek dio badagoela zerbait gizaki ororentzat komuna dena, **erkide** dena, eta hori zuzenbidearen ikuspegitik aztertu eta papereratu egin zuen. Berria - Kultura

Ez da bihar goizeko kontua izango, ez horixe, gure arbaso **erkide** horren aurpegi zehatza ezagutzea. Juan Garzia

Gaur egun argi samar dago, ordea, bi-biak datozela prototipo **erkide** batetik. Juan Garzia

Ez baitugu inolaz ere garbi ikusten zerk bultzatu zuen gure Artista garabide hori bizidunen patu **erkide** bihurtzera. Juan Garzia

Enbrioi guztien garapena, itxura denez, zenbait printzipio **erkidetan** oinarritzen da. Juan Garzia

Gizon handien ideiak gizadiaren ondare **erkidea** dira: haietariko bakoitza bere bitxikerien jabe baino ez zen izan benetan. Juan Garzia

Hizkuntza **erkide** bat behar zen; hizkuntza izango zen milioika gizaki zeharo desberdin haiek elkartuko zituen kareorea. Jon Muñoz

Kode horrek gaitzen gaitu, hain zuzen, denboran eta espazioan irauten duten sorburu **erkide** batzuei atxikitzeko. Juan Garzia

Horren iraupen eta zereginak zehaztu ditugu, herri zibilizatuetan **erkide** diren erregelen arabera. Andres Urrutia

• **2** *iz* herri bereko pertsona. ik **herrikide**.

Erkiderik ez baduzu alboan, alde honetara edo horretara dauden ziegetan tribu-kiderik ez badago, "ikusezina" zara. Jokin Urain

18.000 **erkideren** desagerpenaren errudun dela aitortu berri du berak. Hasier Etxeberria

Bidaiek ematen dituzten ustekabekoak, Verginija Zaharieva **erkide** batekin topatu da han, Puxkinen estatuaren inguruan. Edorta Jimenez

Hona etorri direnek **erkidea** bilatu nahi dutenez, bularraldean eskegita dakargun nortasun-txartelari begiratzen diote. Edorta Jimenez

Saderi "jaun eta **erkide** maitea" trataera ematen diote. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Fede honekin, itxaropen eta maitasun honekin jasaten dituzte gure **erkide** presoek euren esklabotzaren gogortasuna eta euren egun lazgarrien ziurgabetasuna. Jokin Urain

Azken hiru aldietan Munduko txapeldun izan da Goikoetxea **erkidearekin**. Berria - Kirola

3 erkidegoa.

Euskal **Erkide** Autonomoan euskal presoez arta duten elkartetako jendeak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta erkide** (3)

---

erkidego **1** *iz* elkarrekin bizi diren eta interes edo helburu bera duten pertsona taldea. ik**komunitate**.

Euskadiko **Erkidegoan** bederen, familia gehienek euskaraz hazi nahi dituzte umeak eskoletan. Pello Salaburu

Euskadi, Katalunia, Gaztela eta Leon, Valentziako **Erkidegoa**, Andaluzia... Iñigo Aranbarri

Ez da gehiago amets hutsa, Europako **Erkidegoa** badabil, Ikatzaren eta Altzairuaren **Erkidegoa** alhan da. Piarres Xarriton

GARAZI-BAIGORRI herriarteko **Erkidegoaz** ez dut ezer esateko, bi kantonamendurekin ongi osatua baita. Herria

Jainkoaren **Erkidegoko** gizarte irekiaren eta zibilizazio guztietan azaltzen den gizarte itxiaren artean dagoen leize handia. Iñaki Mendiguren

Muga fisikorik izango ez lukeen **erkidego** batean planetaren eremu osoa. Iñaki Mendiguren

Lurreko gizarte unitario hau Jainkoaren **Erkidegoko** probintzia gisa ikusita. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren **Erkidegoa** da moralki toleragarri den ekintza-eremu bakarra. Iñaki Mendiguren

Printze giristino guztiei eta haietarik bakoitzari [...] ala haien elkartasunei ala **erkidegoei**, betiko gure lege oinarrizkoaren bitartez debekatzen eta eragozten diegu, [...]. Piarres Xarriton

Joan den ostiralean Espinosarekin telefonoz hitz egin zuen Samaniegok, eta ministroak ziurtatu zion Europako Batasuneko Arrantza Kontseilurako **erkidegoen** ordezkariaren hautaketaren «jakinaren. Berria - Ekonomia

Madrilgo **Erkidegoko** presidente Esperanza Aguirrek atzo azaldu zuenez, **Erkidegoko** Administrazioak finantzatuko du osorik. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gure bi **erkidego** autonomoetan gertatu direla goi mailako hezkuntzari dagozkion taula horretako ehuneko garaienak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez entzunarena egin zioten greko haren deiari berarekin elkar zitezen **erkidego** kristau ortodoxoko kide gisa. Iñaki Mendiguren

Hizkuntza **erkidegoak erkidego** sozialeraino garamatzala. Isabel Arrigain

Nazio kulturalean, nazioaren kontzeptua «**erkidego** etniko-kulturalarekin» lotua dagoela dio Frundaren txostenak. Berria - Harian

Gizarte lotura dela eta, **erkidego** linguistikoa sortzen da, eta agian, ezaugarri erkide batzuk hizkuntza osoaren gainean hedatzen dira. Isabel Arrigain

- **Erkidego** Historikoena da lehenbizikoa (Katalunia, Galizia, Euskadi). Pello Salaburu

Gure euskal **erkidegoa**. Pello Salaburu

Budismo-aurreko paganismo berpiztua erabiliko baitzen japoniar herri, **erkidego** eta estatu bizi bat jainkotzeko bide gisa. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsal hauei begiratzen badiegu, ez atzerritar behatzaileen gisa, beren hiritarren begiez baizik, ohartuko gara hauek ez dutela bakarrik beren lurtar **erkidegoek** betiko bizitzea desiratzen. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lur horren jabe baitzen Baiona aldeko hiri **erkidegoa**, horren gatik ere oraino gehiago sesituak gelditu dira bazterrak! Herria

Segitzen du haatik Bordeleko auzapez bezala eta ere Bordele hiriguneko herri **erkidegoaren** buru gisa. Herria

Aldaketa hori aldi berean bultzatu zuten Europako Ekonomia **Erkidegoaren** sorrerak, eta Latino Amerikako eta Asiako garapen-bideko zenbait herrialde industrializatzeko estrategiak. Irakasle ez-funtzionarioak kontratatzeko modua autonomia **erkidegoen** esku gelditukо da. Koro Navarro

Corvergencia i Unio Kataluniako koalizioak Espainiako autonomi **erkidegoetako** selekzioak nazioartean lehiatu ahal izateko lege proposamen bat aurkeztu zuen Espainiako Legebiltzarrean. Berria - Kirola

Eskura ditugun datuak EAEari dagozkionak bakarrik dira, Nafarroako Foru **Erkidegoari** buruz ez baitugu datuak eskuratzerik izan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hizkuntza **erkidego** hori da, hain zuzen, neurri batean behintzat, batasun etnikoa osatzen duena. Isabel Arrigain

Elkartearen bizimodua: ondasun-**erkidegoa**. Elizen arteko biblia

Andaluziako Omeiatar Kaliferriaren Erdi Aroko kristau katoliko konkistatzaile barbaroak kristau-**erkidego** homogeneo baten idealera emanak baitzeuden. Iñaki Mendiguren

4 irud/hed

Har dezagun "matematikarien **erkidego"** delakoa. Jon Muñoz

5 Euskal Autonomia Erkidegoa.

Nafarroako eta **Erkidegoko** datuak parekatuak ditugulako hemen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

asko beste erkidego (3); **autonomi erkidego** (8); **autonomia erkidego** (34); **autonomia erkidego bakarra** (3); **autonomia erkidego batean** (3); **beste autonomia erkidego** (7); **beste erkidego** (28); **beste erkidego batzuetan** (7); **beste erkidego batzuetara** (3); **beste erkidego edo** (3); **da erkidego** (4); **dituen erkidego** (3); **du beste erkidego** (3); **du erkidego** (5); **duen erkidego** (4); **edo erkidego** (4); **erkidego autonomo** (7); **erkidego autonomoak** (3); **erkidego autonomoan** (8); **erkidego autonomoaren** (3); **erkidego autonomoek** (3); **erkidego autonomoen** (6); **erkidego autonomoetako** (4); **erkidego autonomoko** (3); **erkidego bakarra** (8); **erkidego bakoitzak** (9); **erkidego bakoitzean** (3); **erkidego bakoitzeko** (6); **erkidego bat** (6); **erkidego batean** (6); **erkidego batean sartzen** (3); **erkidego batek** (5); **erkidego bateko** (8); **erkidego bateko presidenteak** (3); **erkidego baten** (5); **erkidego batzuetan** (9); **erkidego batzuetara** (3); **erkidego berriak** (3); **erkidego edo** (3); **erkidego eta** (5); **erkidego guztiak** (6); **erkidego guztiek** (4); **erkidego guztiekin** (3); **erkidego guztien** (12); **erkidego guztien artean** (4); **erkidego guztietako** (7); **erkidego guztietan** (3); **erkidego honetako** (3); **erkidego honetan** (4); **erkidego horren** (3); **erkidego mailako** (4); **erkidego osoan** (3); **espainiako autonomia erkidego** (3); **espainiako erkidego** (4); **eta autonomia erkidego** (4); **eta erkidego** (16); **euskadiko erkidego** (7); **euskadiko erkidego autonomoan** (6); **euskal autonomia erkidego** (3); **euskal erkidego** (3); **foru erkidego** (3); **herri erkidego** (5)

autonomi erkidegoa (8); **autonomi erkidegoa eta** (3); **autonomi erkidegoak** (3); **autonomi erkidegoan** (18); **autonomia erkidegoa** (29); **autonomia erkidegoak** (41); **autonomia erkidegoak dituen** (3); **autonomia erkidegoak eae** (3); **autonomia erkidegoan** (119); **autonomia erkidegoan eae** (7); **autonomia erkidegoan eta** (4); **autonomia erkidegoan ez** (3); **autonomia erkidegoan sartzeko** (3); **duen erkidegoa** (3); **erkidegoa da** (4); **erkidegoa eta** (6); **erkidegoa izan** (3); **erkidegoak bere** (3); **erkidegoak dituen** (5); **erkidegoak eae** (3); **erkidegoan dagoen** (3); **erkidegoan dauden** (4); **erkidegoan duen** (3); **erkidegoan eae** (7); **erkidegoan egin** (3); **erkidegoan eta** (5); **erkidegoan ez** (5); **erkidegoan sartzea** (4); **erkidegoan sartzeko** (3); **eta erkidegoak** (4); **euskadiko autonomi erkidegoa** (3); **euskadiko autonomia erkidegoan** (7); **euskadiko erkidegoa** (3); **euskadiko erkidegoan** (5); **euskal autonomi erkidegoa** (4); **euskal autonomi erkidegoan** (16); **euskal autonomia erkidegoa** (22); **euskal autonomia erkidegoak** (27); **euskal autonomia erkidegoan** (105); **foru erkidegoa** (5); **foru erkidegoak** (8); **foru erkidegoan** (11); **gure erkidegoan** (6); **herri erkidegoak** (3); **nafarroako foru erkidegoa** (3); **valentziako erkidegoa** (3); **valentziako erkidegoan** (3)

autonomi erkidegoaren (4); **autonomia erkidegoarekin** (6); **autonomia erkidegoarekin bat** (3); **autonomia erkidegoaren** (27); **autonomia erkidegoaren eta** (4); **autonomia erkidegoaren kasuan** (3); **autonomia erkidegoari** (15); **den erkidegoaren** (3); **erkidegoarekin bat** (3); **erkidegoaren arteko** (3); **erkidegoaren barruan** (3); **erkidegoaren egoerari** (3); **erkidegoaren egoerari buruzko** (3); **erkidegoaren eremuko** (3); **erkidegoaren eremuko harreman** (3); **erkidegoaren eta** (8); **erkidegoaren kasuan** (3); **erkidegoari dagozkion** (3); **euskadiko erkidegoaren** (8); **euskadiko erkidegoaren eremuko** (3); **euskal autonomi erkidegoaren** (4); **euskal autonomia erkidegoarekin** (5); **euskal autonomia erkidegoaren** (23); **euskal autonomia erkidegoari** (15); **foru erkidegoaren** (13); **foru erkidegoari** (4)

autonomi erkidegoen (8); **autonomi erkidegoen finantzaketari** (4); **autonomia erkidegoei** (8); **autonomia erkidegoek** (32); **autonomia erkidegoek europako** (8); **autonomia erkidegoekin** (6); **autonomia erkidegoen** (39); **autonomia erkidegoen esku** (9); **bi erkidegoek** (5); **bi erkidegoen** (4); **da autonomia erkidegoek** (3); **erkidegoei dagokie** (3); **erkidegoek europako** (10); **erkidegoek europako batasuneko** (3); **erkidegoek europan** (4); **erkidegoekin alderatuta** (3); **erkidegoen artean** (7); **erkidegoen arteko** (12); **erkidegoen esku** (13); **erkidegoen esku utzi** (3); **erkidegoen esku uzteko** (3); **erkidegoen eskumenak** (3); **erkidegoen finantzaketari** (5); **erkidegoen finantzaketari buruzko** (5); **erkidegoen ordezkari** (4); **erkidegoen parte** (4); **eta autonomia erkidegoek** (4); **eta autonomia erkidegoen** (3); **eta erkidegoei** (3); **eta erkidegoen** (10); **eta erkidegoen arteko** (4); **europan erkidegoek** (5)

autonomi erkidegoetako (5); **autonomia erkidegoetako** (56); **autonomia erkidegoetako presidenteekin** (3); **autonomia erkidegoetako presidenteen** (16); **autonomia erkidegoetan** (6); **autonomia erkidegoetara** (4); **bi erkidegoetako** (3); **bi erkidegoetan** (3); **den erkidegoetan** (3); **dituen erkidegoetako** (4); **erkidegoetako arduradunekin** (3); **erkidegoetako estatutuen** (3); **erkidegoetako gobernuen** (3); **erkidegoetako lehendakariak** (4); **erkidegoetako lehendakarien** (5); **erkidegoetako ordezkariak** (3); **erkidegoetako ordezkariek** (5); **erkidegoetako presidenteak** (4); **erkidegoetako presidenteei** (3); **erkidegoetako presidenteek** (6); **erkidegoetako presidenteekin** (11); **erkidegoetako presidenteekin egiten** (3); **erkidegoetako presidenteen** (34); **erkidegoetako presidenteen bileran** (4); **erkidegoetako presidenteen bilkura** (5); **erkidegoetako presidenteen konferentzia** (7); **erkidegoetako presidenteen konferentziaren** (3); **espainiako autonomia erkidegoetako** (9); **espainiako erkidegoetako** (3); **estatuko autonomia erkidegoetako** (3); **estatuko erkidegoetako** (3); **eta autonomia erkidegoetako** (6); **eta erkidegoetako** (4)

autonomi erkidegoko (14); **autonomia erkidegoko** (232); **autonomia erkidegoko aldizkari** (3); **autonomia erkidegoko ararteko** (3); **autonomia erkidegoko ararteko**ak (5); **autonomia erkidegoko auzitegi** (6); **autonomia erkidegoko eae** (25); **autonomia erkidegoko errepideetan** (3); **autonomia erkidegoko estatutu** (3); **autonomia erkidegoko eta** (8); **autonomia erkidegoko gobernuak** (4); **autonomia erkidegoko hauteskundeak** (3); **autonomia erkidegoko hauteskundeetan** (3); **autonomia erkidegoko hezkuntza** (4); **autonomia erkidegoko hiru** (4); **autonomia erkidegoko lanbide** (3); **autonomia erkidegoko lurralde** (3); **autonomia erkidegoko lurzoruaren** (7); **erkidegoko aldizkari** (3); **erkidegoko ararteko** (3); **erkidegoko ararteko**ak (5); **erkidegoko auzitegi** (6); **erkidegoko auzitegi nagusiak** (5); **erkidegoko eae** (25); **erkidegoko errepideetan** (4); **erkidegoko estatutu** (3); **erkidegoko estatutu berrirako** (3); **erkidegoko eta** (8); **erkidegoko eta espainiako** (3); **erkidegoko eta kataluniako** (3); **erkidegoko gizarte** (3); **erkidegoko gobernuak** (7); **erkidegoko hauteskundeak** (4); **erkidegoko hauteskundeetan** (3); **erkidegoko hezkuntza** (4); **erkidegoko hiru** (4); **erkidegoko lanbide** (3); **erkidegoko lehendakaria** (4); **erkidegoko lurralde** (3); **erkidegoko lurzoruaren** (7); **erkidegoko lurzoruaren lege** (5); **erkidegoko ppko** (3); **erkidegoko presidente** (7); **erkidegoko presidente miguel** (3); **eta erkidegoko** (4); **euskadiko autonomia erkidegoko** (5); **euskadiko erkidegoko** (3); **euskal autonomi erkidegoko** (12); **euskal autonomia erkidegoko** (217); **foru erkidegoko** (17); **foru erkidegoko presidente** (3); **gure erkidegoko** (4); **madrilgo autonomia erkidegoko** (6); **madrilgo erkidegoko** (5); **nafarroako foru erkidegoko** (4)

autonomia erkidegorako (9); **autonomia erkidegotako** (4); **autonomia erkidegotik** (6); **autonomia erkidegotik kanpo** (3); **bi erkidegotan** (3); **erkidegotik kanpo** (5); **euskal autonomia erkidegorako** (8); **euskal autonomia erkidegotik** (5); **hainbat erkidegotako** (3); **hainbat erkidegotan** (4)

---

erkidegoka *adlag* erkidegoen arabera.

Gainontzeko unibertsitateak, baina, **erkidegoka** finantzatzen dira, eskumenak Espainiako Gobernuak mantendu arren. Berria - Euskal Herria

---

erkidetasun *iz* erkide izateko nolakotasuna.

Arrakasta bekatu bat da, atentatu bat da... jendeen elkarrekikotasunarentzat, **erkidetasunarentzat** , partzuergoarentzat, komunitatearentzat. Iñaki Segurola

Aipatu legelarien arteko **erkidetasunik** ote dagoen galdetuz gero, erantzuna berehala ematekoa da: zuhurtzia eta moderazioa. Andres Urrutia

Nolanahi ere, gaur egun zabalduen eta **erkidetasunik** gehien eskaintzen dituzten horiek ematen ahalegindu gara. Andres Urrutia

---

erkidetze *iz* erkide bihurtzea.

Maitasuna bi parteen **erkidetzean** datza, hots, maitaleak maiteari ematean eta **erkidetzean** duena, edo duenetik edo ahal duenetik, eta, aitzitik, maiteak maitaleari Patxi Altuna

---

erkin 1 *izond* ahula.

Bere ondoan, senarra behar duena, eskutik heltzen dion gizon **erkin** bat, aho zabalka etengabe. Harkaitz Cano

Petroven beldur guztia amarengan biltzen zen, aurpegi zurbileko emakume **erkin** eta adintsu horrengan. Jose Morales

Trenbide ertzeko harri koskor bat bota nion animalia **erkinari** . Harkaitz Cano

Pedroren itxura bere herriko galgo **erkinarena** zen. Jon Maia

Kaiola barruan, han zebiltzan zenbait euli **erkin** orratzez orratz narraska beren hesian. Juan Garzia

Txikia eta **erkina** zen; aurpegia luzea zuen. Fernando Rey

Miresgarriro osatutako gazte bat da, ala agure **erkin** , urratuz bete bat? Josu Zabaleta

2 (gauzei buruz)

Inoiz saiatu da filmetarako probetara agertzen, baina gorputz **erkin** hori ikusi orduko, atzera bota dute zuzendariaren laguntzaileek. Javi Cillero

Gorputz meharra eta **erkina** izanagatik ere, bere bizitzan korrika saio gehiegi ez egin izanaren itxura zuen. Harkaitz Cano

Deusetarako balio ez duen justizia ziztrin hori, intelektual beso **erkinek** asmatua, neska-lagunak lapurtu zizkieten marinel beso-tatuatu sendoekiko euren herra erredimitzeko. Harkaitz Cano

Haien lehendabiziko hezurtxo **erkin** zirraragarriak ikusi nituen, habian aho zabalka, mokoekin erreguka. Mirentxu Larrañaga

Zure zakil **erkin** horrek. Rita eta bion artean bazen une hartan zubi bat, zinkezko zubitxo bat, **erkina** baina ibilgarria; tira, emak lehen urratsa. Oskar Arana

Aurpegi txiki eta **erkineko** gizon horrek ez zuen deabruaren antzik txikiena ere. Jose Morales

Harri zuria belar **erkinaren** gainetik nabarmentzen zen. Juan Garzia

Zoriona kristal hauskorrez osatutako lore **erkina** dela. Pako Aristi

Bizikletako eskutoki bati oratuko bazenio bezala neukan eskumuturra, hain zen **erkina** . Javi Cillero

Honek guztionek ez du esan nahi, jakina, euskara murritza eta **erkina** erabili behar denik. Koldo Zuazo

Holakoxe itxura **erkin** , txatxar, tautologiko edo arlote pobrea hartu ohi du Egiak. Iñaki Segurola

Nolako euskara eskasa, gazbakoa, urria, **erkina** , ezdeusa zeukan azaldu nahi zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere legearen arabera nahi izaten badu kultura (beti unibertsala noski!) bereganatu eta aitzinarazi, materialki marjinazioko lagunarte kultural txiroagoan kausituko da, estuago,

erkinago, irtenbidegabekoago, zailagoan. Joxe Azurmendi

Hedabideetan gure presentzia nahiko **erkina** edo hutsaren hurrengoa izaten da, salbu eta euskal komunikabide dei geniezaiekeen hauetan. Berria - Harian

3 (adizlagun gisa)

Orain neure burua aurkitzen dut **erkin**, zaurgarri, hauskor. Txillardegi

Larunbatean, geranioz beteriko balkoitxotik, **erkin** eta zurbil egiten zien eskuaz agur "scòla"tik irteten zen jendeari. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erkin bat (3); **eta erkina** (3)

---

erkindu, erkin(du), erkintzen *(orobat **erkitu**)* **1** da/du *ad* ahuldu.

Adin jakinik gabeko gizon **erkintzen** hasia izanagatik ere, sasoitsu zegoen oraindik aita, eta nekez segitzen zion Norak. Anjel Lertxundi

François jaiki zen, ikaraz, han luzaroago ezin egonik, ia **erkintzen** ari zela sentiturik. Josu Zabaleta

Ohatzeak bere hartan **erkindu** eta ahituko zuen neska, baldin zerua guztiz urdin eta belaontzia inoiz baino geldiago zegoen goizalba batez, Norak Andreas sentitu izan ez balu ontzigainean kantari: [...]. Anjel Lertxundi

Ohera eraman zuen behin betiko, ezen ordurako hain ere **erkindurik** zegoen, non zangoek ez baitzioten eusten zutik. Juan Garzia

Erkituta geunden hainbeste ibiliren ondoren, eta suspergarriren bat behar genuen. Bernardo Atxaga

Ar gazte bat da, atzeko ezkerreko hanka **erkindurik** du eta herrestan darama. Oskar Arana

Hain gizon txepel eta soraio bilakatua zen, sena kamustua eta sumatzeko ahalmena ere **erkindua** zuen. Patxi Zubizarreta

2 (era burutua izenondo gisa)

Bien artean altxatu zuten ama **erkindua**. Jose Morales

Ohiz besteko etxetzar luze, ikaragarri luze hark elbarri **erkindua** ematen zuen. Jose Morales

Isil deiak entzun ziren jende artean, eta epaile-longainaz jantzitako agure **erkindu** batek igo zituen urkamendiko eskailera-mailak. Anjel Lertxundi

Alkatearen ondoan zegoen emakume **erkindu** batek hitz egin zuen, ahots sentitu batez. Anjel Lertxundi

Gauza bat esaten zuen Frau Gerdaren gorputz **erkinduak** eta beste bat haren mugimenduen bizitasunak Aurpegi zuri eta **erkindua** gelaren erdian. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
agure erkindu (4); **emakume erkinduak** (3); **erkindu batek** (4)

---

erkinka *adlag*

Han euskarak ez baitu behar duen laguntzarik batere, eta euskararen aldekoak **erkinka** eta eskuzabalki ari baitira agintari politikoen borondatearen gainetik Pello Salaburu

---

erkitu ik **erkindu**.

---

erla ik **erle 3**.

---

erla[1] *iz*

Horrexegatik laketzen zen guri mehatxu egiten putzura bultzatzen **erlak** kentzen eskopetaz begi ematen, beldurraren jabe zelako baino lagun nahi gintuelako bere adinekoek ezarria zioten destainaren aurka. Koldo Izagirre

---

erla[2] ik **erle 3**.

---

erlaino *iz* behe lainoa.

Erlainoak estaltzen guzia. Aurelia Arkotxa

Eguzkia indartu ahala, airea berotuz eta lehortuz doa: bertan suntsituko da **erlainoa** eta bertan ezabatuko behe-lainoa, aireak xurgatuko baitu. Pello Zabala

Tenperaturari geldo eta geldi samar eusteaz gainera, ez du **erlaino** eta erreka-lainorik sortzen, zeru estaliak badira. Pello Zabala

Jasoko al du? Hala galdetzen da goizetako **erlaino** eta terralak ikusitakoan. Pello Zabala

Esnezko **erlaino** lodiak Côte-Nord deitzen duten Quebec iparraldeko itsas-hegi hartako oihan beltzak estaltzen zituen. Aurelia Arkotxa

---

erlaitz *(orobat **erlaiz** g.er.)* **1** *iz* eraikuntza baten goialdeko irtengunea, eskuarki azpialdea euritik babesteko ezartzen dena.

Karlos, Axier eta Pitu kalera irten eta etxeetako **erlaitzen** pean gordetzen ahalegindu dira. Sonia Gonzalez

Broadwaytik gora egin zuen Ehun eta bosgarren kaleraino, gero ekialderantz jo Columbus Avenue-ra, ate, sute-eskailera, leiho eta **erlaitz** guztiei erreparatuta. Lopez de Arana

Kolomen kapitelen gainean joango diren elementu gu ztiak, hau da, arkitrabe, friso, **erlaitz**, tinpano, frontoi, akroteriak, altueraren hamabiren bateko inklinazioarekin egin behar dira, aurreko aldera aterata. Santiago Iruretagoiena

Kontuan hartu plintoak, basak, dadoak, **erlaitzak** eta zimazioak kolomen oinarriaren azpian egongo den estilobatoarekin egokituz egin behar direla. Santiago Iruretagoiena

Hormaren goiko aldean erretako adreiluarekin ilara bat egin behar da teilatuaren azpian, gutxi gorabehera oin eta erdiko altuerakoa, eta kanpora ateratako **erlaitza** duena. Santiago Iruretagoiena

Leihoen inguruko eta teilatu-hegalaren azpiko **erlaitzek** abarrak eta loreak zeuzkaten zizelaturik. Jose Morales

Argizulo horrexen hurbilean, **erlaitz** batean, lanpara batek argitasun ahula zabaltzen zuen era guztietako hondakinez beterik zegoen lurrezko zoruaren gainean. Patxi Zubizarreta

Kanpoaldean, limoi-koloreko goiztiriak kale hutsak blaitu zituen, **erlaitzetatik**, sute-eskaileren eskudeletatik eta zakarrontzien ertzetatik tantak isuriz. Lopez de Arana

Erlaitzen irtenguneak bota egingo ditu tantak pareta-lerrotik kanpora, eta era horretan, hondatu gabe gordeko ditu pezozko paretak. Santiago Iruretagoiena

Gure artean, modiloiei edo **erlaitzei** eutsiz jartzen diren gizon itxurako irudiei *telamones* deitzen zaie. Santiago Iruretagoiena

Harresien **erlaitzetan** jarritako zuzien argi dardarkariak argitzen zuen hura. Agustin Otsoa

Arkitrabe doriarrak izanik, **erlaitzetan** dentikuluak zizelkatuko balira edo kapitel eta koloma bolutadunetan eta arkitrabe (kapitel) joniarren gainean triglifoak egingo balira. Santiago Iruretagoiena

Ekialdera jo eta, irtenunearen alboan ebakitako **erlaitzean** zehar, lautadarantz jaisten segitzen zuen, Burdinahoraino heltzeko. Agustin Otsoa

Erlaitzetik zabaltzen zen armiarma-sare mehe bat. Koro Navarro

Tximiniaren **erlaitzean** geratu ziren lerro-lerro botila hutsak. Koro Navarro

ik beherago 5. Askoren artean

2 irud/hed

Zergatik kendu ditudan bion argazkiak beheko suaren **erlaitzetik**, ea harremanak eten ditugun neure zakarkeria dela medio. Javi Cillero

Nofuturek, hegalei jo eta ke eraginez, ihes egin zuen, eta erreflexu hutsez, tximiniako **erlaitzean** pausatu. Jon Muñoz

Orduan, dardarka, altxatu egin zen, eta, leihoaren **erlaitzera** igo zenetik lehen aldiz, bera asko maite izan zuen dama batekin gogoratu zen Peter. Julen Gabiria

Lanpara leiho itxiaren **erlaitzean** ipini zuelarik, semearen emazteari begira geratu zitzaion. Patxi Zubizarreta

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Mantu zuri batez estalita, gizaki bakartia euripean geldi-geldi eserita zegoen, **erlaitz** luze baten ertzean. Joanes Urkixo

"Erlaitz soil batetik" irakurriko du ozen, so eginen diogu, orobat, Mont Blanc-en gailur biluziari. Oskar Arana

Baldar hega-biraka, tximinia gaineko igeltsuzko **erlaitzean** jarri zen, eta bat-batean lokartu, burua atzerantz bildua, bizkarreko lumetan gerizatua. Jon Muñoz

4 (hitz elkartuetan)

Badaude beste **erlaitz**-forma batzuk zizelkatuak. Santiago Iruretagoiena

· Bere musuzapian zomorroak biltzen zituen eta goroldio puska batean paratzen zituen leiho-**erlaizaren** gainean. Fernando Rey

5 ***tximinia erlaitz***

Beti bezain itxurazkoa, tximinia-**erlaitz** hura eta betiereko altzari zaharkitu haiek. Mirentxu Larrañaga

Harri bitxi bat erosiko niola erabaki nuen, bitxi polit bat, zinez, erosi eta bere bitxi kutxatxoan jarri nuen, tximinia **erlaitzean**. Josu Zabaleta

Ez zegoen dirurik tximinia-**erlaitzeko** pitxerrean, eta egunean-egunean janari gutxiago genuen mahaian. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erlaitzak eta (4); **eta erlaitzak** (6)

---

erlaitzeria *iz* erlaitz multzoa.

Neguko triklinioetan ez da batere egokia konposizioaren aldetik gai handiosoz egindako pintura jartzea, ezta geletako **erlaitzeria** sotiltasunez apaintzea ere, zeren eta suaren kearekin eta suziri ugarien kedarrarekin hondatu egingo baitira lan horiek. Santiago Iruretagoiena

---

erlaiz ik **erlaitz**.

---

erlajatu ik **erlaxatu**.

---

erlajatzaile ik **erlaxatzaile**.

---

erlajazio ik **erlaxazio**.

---

erlakaizten ik **erlakizten**.

---

erlakizten *(orobat **erlakaizten**) iz* zaldarra.

Infekzioa izan den lekuan agertzen den zornea, **erlakizten** bat lehertu aurretik [...] granulozitoz, hildako bakterioz eta kaltetutako ehun hondarrez osaturiko nahasketa bat da. Irene Aldasoro

Egiptoarrak jo zituen bezalako zauri zornatsuz eta **erlakizten**, sarna eta ezkabiaz joko zaituzte Jaunak, eta sendaezinak gertatuko zaizkizue gaitzok. Elizen arteko biblia

Hil ez zirenak **erlakiztenez** josiak zeuden. Elizen arteko biblia

Edonori soinean sortutako **erlakaizten** eta handitsuak sendatzeko lehenik Lorentzo santuari eskatzen omen zitzaion. Pello Zabala

Iltzeen moduko **erlakaiztenak** atera zaizkit izterretan. Itziar Otegi

---

erlama *iz* erleen erregina.

Esan zion erle guztien ama dela **erlama**; erlerik potenteena dela **erlama**. Unai Elorriaga

Erlama berri batekin joaten dira erlauntzetik. Unai Elorriaga

Substantzia baten bitartez kontrolatzen dituela **erlamak** beste erle guztiak, aginduak ematen dizkiela. Unai Elorriaga

Erlama hori zaharra da, beste hori gaztea. Unai Elorriaga

---

erlamando *(orobat **erlemando**) iz* erle arra, erregina ernaldu beste egitekorik ez duena.

Erle-hotsaren artetik, bada oihartzun bat, kexu itoa: **erlemandoarena**. Anjel Lertxundi

Erlamandoaren antzeko zara: ez du erleen lana bere gain hartzen, baina lehenengoa da eztia jaten. Askoren artean

Erle zintzoen lan eta irabazia jaten duen **erlamando** alfer eta antzuak bezala. Askoren artean

Bera zen nire amesgaiztoa; baina bete egiten zidan etxea! Xehatuko zaitut, **erlamando** bat bezala! Josu Zabaleta

Bakarrik geratu nintzenean, **erlamandoa** bezala geratu nintzen geletan zehar nora ezean. Josu Zabaleta

erlandegi *iz*

Baina arratsalde honetan, **erlandegira** abiatuko gara eta bidean, Creac'h eskualdean duela sei hilabete piztu zen suak engainatu ontziaren aztarnak erakutsiko dizkizut. Itxaro Borda

Denbora luze baten ondotik, Porsgwen eskualdeko lautadan zeuzkan **erlandegietarik** uhartea zeharkatuz, Fanch hurbiltzen ikusi nuen. Itxaro Borda

---

erlantz **1** *iz* distira.

Ilargiaren **erlantza** hegalean. Joxe Austin Arrieta

Ekaitz urrun baten **erlantzei** esker antzeman zitekeen, gehienaz ere, oihanean barrena gindoazela, zingirak ageri han-hemenka. Joxe Austin Arrieta

Ahukuaren atzealde itxurosoa pasatu, eta bi behatzaileak haren **erlantzak** eragindako itsutasun liluramenduzkotik beren onera etorri zirenean, esan zuen Almiranteak: [...]. Xabier Olarra

Harantzago, **erlantzak** gorantz egiten zuen, kaleek aurrean horma lauso hori eta gorrixkak balituzte bezala. Lopez de Arana

Bere haztaezintasun eta ikusezintasun erabatekoan edertasun paregabeko **erlantzez** blai egiten baitituzte begi lurtarrez gabeturiko gogamenak. Joan Mari Lekuona

Zer axola zitzaizkidan niri hezur luzeak, aurpegi zerutiar hura ikusita; zer neskaren gorputzeko atal guztiak josten zituzten urratu eta ubeldurak, elurrak eguzkipean bezalako **erlantza** zabaltzen zuen ile fin haren aitzinean. Alberto Ladron Arana

Bazegoen ezaugarriren bat Ramsay andreak berak ez zeukana, **erlantzen** bat, oparotasunen bat, senarra erakarri, dibertitu, eta Mintaren moduko neskak haren kuttun bihurtzen zituena. Anton Garikano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estu-estu besarkatu ditu bai aita eta bai ama, eta negar-tanto baten distira ere antzematen zaio begi-ertzeko **erlantz** argitsuan. Xabier Mendiguren Elizegi

Txirla-katilu zilar-kolorekotik irteten zen lurrina lanpararen pantailaren **erlantz** arrosaren inguruan kiribiltzen zen. Lopez de Arana

Tul zuriari **erlantz** distiratsuegia zerion. Lopez de Arana

Arakatzeko orduan, **erlantz** zoragarriak agertu ahala, beharra hartu nuen. Berria - Kultura

Ez zaio irribarrea ahoan sartzen; uholde ironikoa du begietako **erlantza**. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Umeltasun **erlantzek** argitzen dituzte paretetako harriak. Itziar Otegi

---

erlas ik **erlats**.

---

erlaseme *iz* erlekumea.

Erleak **erlasemea** egiten duenean, erlauntza berri batera eramaten da. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erlastar *iz* erlamandoa.

Eta **erlastar** eta liztorren burrunba. Hasier Etxeberria

Ados geratu dira lehenengo aukeran Zuzendariari burrunba egingo diotela, hau da, masailak puztu eta ezpainekin **erlastarren** hotsa egin, euren ezadostasuna adieraztearren. Itziar Otegi

Kabletik alde egin nahirik doan elektrizitatea; edo **erlastar** burrunbaria argiaren bila. Joseba Sarrionandia

---

erlastu, erlats, erlasten **1** da/du *ad ipar* marrantatu.

-Ene aita, gaur nire hutsegiteengatik errieta egiten zenidanean, konturatu naiz ahotsa **erlastu** egin zaizula, neke gehiegiagatik nik uste. Askoren artean

Sermoi luzeak egiten zituen arren, ez zen aise marrantatzen eta **erlasten** zen predikaria. Joan Mari Irigoien

Weasley andreari ahotsa **erlastu** zitzaion oihuka, Harryrengana jiratu baino lehen. Iñaki Mendiguren

Estepan izena oihukatu nuen lau haizeetara, bete-betean, Anbotoko gailurretik, behin eta berriz, zintzurra **erlasten** hasi zitzaidan arte. Juan Luis Zabala

Atera egin dute, otzan, baina kanporatu aitzin Asier itzuli da, suminak eztarria **erlasten** diola. Aingeru Epaltza

-Gaizkitzen ari zara? -xuxurlatu zuen Doroteak, ahotsa **erlasturik**. Josu Zabaleta

2 (era burutua izenondo gisa)

Ilargi beteari kantan ari ziren igel **erlastuen** konpainian. Itxaro Borda

Charly ere ametsen mundutik itzulia zen, bere zintzur **erlastua** gehitzera kantaren leloari. Aingeru Epaltza

Berehala, zakurraren txanpa **erlastuak** aditu ziren. Itxaro Borda

Nofuturen ahots **erlastuak** gora egin zuen: [...]. Jon Muñoz

Ahots **erlastu** edo marrantatu samar bat nahiago izaten da blues kantari izateko. Josu Zabaleta

Oihu **erlastu** mordoa bota zuen Nofuturek: baina loro gisa hitz egin zuen oraingoan, peto-peto. Jon Muñoz

Atondora ernegaturik sartu, eta hizketa molde **erlastuz** galdegin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

---

erlategi *(orobat **erletegi** g,er.)* **1** *iz* erlauntzak dauden tokia.

Tomasi berrogeita bi aldiz kontatu ziola Dimasek erlekumea galdu zuela lehenengo eta **erlategi** osoa gero. Unai Elorriaga

Ukitu edo dastatu ezin den aireko gozotasun edo mintasun batek erakarrita, hurbil zitekeen kupula formako **erlategira**. Anton Garikano

Etxea egiten zaie sugandilei **erlategietan**. Unai Elorriaga

Buenos Aires-eko portuan hunek eramaiten gaitu Colonia hirirat eta hortik segitzen dugu San Jose-rat hor baita **erletegia**. Herria

2 irud/hed

Atzera-aurrera dabilen jendez osatutako **erlategi** bat da eliza, honi begiratu, hura seinalatu, hari argazkia atera. Anjel Lertxundi

Bertako mosaiko ederrak ikusirik, mundua mosaiko bat dela bururatu zaio: eite, kultura, pentsamendu eta kolore desberdinetako gizon-emakumeez osatutako **erlategi** bat. Anjel Lertxundi

Izan ere, don Justinianok eraikitako **erlategiak** zementua bezalakoak dituk, hotzak eta urrunak, eta jendea ere halakoa bihurtu duk. Joan Mari Irigoien

Nire inguruko mundua zurrumurru mehatxagarrien **erlategi** erraldoi bat zen. Anjel Lertxundi

---

erlatibatu ik **erlatibizatu**.

---

erlatibismo 1 *iz* doktrina epistemologikoa, zernahi balio edo ezagupen erlatiboa dela dioena. ik**erlatibitate**.

Guri ezagutzeko ematen zaigun ororen erlatibotasuna esan nahi du **erlatibismoak** . Joxe Azurmendi

Ooro har, **erlatibismoak** baieztatzen du gure ideia kognitiboak, moralak edo estetikoak -egiatasunaz, esanahiaz, razionaltasunaz- haiek sortzen diren testuinguruekiko erlatiboak direla. Askoren artean

Garai hartako balio sofistiko gailenak -komenientzia, pragmatismoa eta **erlatibismoa** -. Askoren artean

Erlatibismoa nagusi denean, dena libre dago, "ez dago poeta madarikaturik" (160): indibiduoak ez dauka zeren kontra errebelatu. Joxe Azurmendi

Protagorasen beraren baieztapen ezaguna ekartzen da harira, politikan, giza kontuetan hain eragin handia duen balioen **erlatibismoa** adierazteko: "Gizona da gauza guztien neurria". Askoren artean

Harremanak goitik beherakoak ziren gure partetik eta beraz, Descartesek zion bezalatsu gure izpiritua bere mamiaz bizi zen, horizontalaren **erlatibismoan** sartu gabe. Piarres Aintziart

Erlatibismoarentzat , egia oro, edo balio oro, ikuspuntu batentzat da egiazko edo baliozkoa. Joxe Azurmendi

Engoitik orain, kontzeptu orokor oso zabala da ja, egiaren edo balioen erlatibotasun arrunta erakusten edo suposatzen duen zenbait praxi franko ezberdin zientzietan barnebiltzen duena: orduan **erlatibismoa** gaur egun aurkitu, perspektibismo, historizismo, soziologismo, psikologismo, antropologismo, biologismo, eboluzionismo, pragmatismo, fikzionalismo, etab., gisan aurkitzen da de fakto. Joxe Azurmendi

Ondorioen edo praktikaren kontsiderazio aldetik ere azal daiteke balioen **erlatibismoa** . Joxe Azurmendi

Katolikoen hurrengo aita santuak **«erlatibismoaren** diktadura» hautsi beharko lukeela esan du Ratzingerrek. Berria - Harian

Erlatibismoaren kritika eta absolutuaren galdea. Joxe Azurmendi

Txarra al da, bada, **erlatibismoaren** garaian pertsona integroa, osoa, oinarri sendoak dituena izatea? Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erlatibismo kultural eta moral horren aurka, Finkielkrautek kultura unibertsal, objektibo bakarra mundu osoarentzat eta balio absolutuak pertsona guztientzat bindikatzen ditu. Joxe Azurmendi

Erlatibismo kulturalaren doktrina antropologian. Askoren artean

Erlatibismo filosofikoaren ikuspegitik irakurri ditu hala euskal kulturaren alde nola euskal kulturaren kontra aritutakoak. Askoren artean

Panofskyren **erlatibismo** historikoaren kontra. Josu Zabaleta

Razionalismo/irrazionalismo bikoteari buruzko eztabaida: errealismo zientifikoa, **erlatibismo** kognitiboa. Askoren artean

Errealaren egia nola adierazten den ikusteko modu bat da hau, ez **erlatibismo** hutsean, baizik eta perspektiba distortsioetan. Joseba Zulaika

Orain egiazko balioaren irizpiderik ez dugu, denak berdin balio du, **erlatibismo** zirriborrotsuenean zirriborratuak gabiltza. Joxe Azurmendi

Orduan Arrazoimenak, maiuskulaz idatziak, oraingo **erlatibismo** mengelak gabe, garbi eta sendo zekien zer dagoen ongi eta zer gaizki. Joxe Azurmendi

3 (hitz elkartuetan)

Erlatibismo pittin bat gehiago beharko luke agian paradisu bila etorri eta infernua bertatik bertara taxuz ikertu omen duenak. Iñaki Heras

· Horrek guztiak kultura **erlatibismoaren** eta giza eskubideen unibertsaltasunaren arteko eztabaidari heltzeko bide eman dio antropologoari: [...]. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

balioen erlatibismoa (7); **erlatibismo hori** (3); **erlatibismo horren** (4); **erlatibismoaren diktadura** (3); **erlatibismoaren eta** (3); **eta erlatibismoa** (5)

---

erlatibista 1 *izond* erlatibismoarena, erlatibismoari dagokiona.

Ilustrazioak berak -kritikak- Arrazoimen oinarriztatzaile ahaltsu hura aspaldi birrindu eta gero, zer izan ahalko litzatekeen gaur arrazoimen ilustratu bat, arrazoimen **erlatibista** hauxe ez bada. Joxe Azurmendi

Giza adimenaren ahalmenari buruzko ikuspegi neurtu edo **erlatibista** sortu zen filosofo batzuengan. Askoren artean

Pentsamendu **erlatibistak** , bestelako filosofia batzuek baino hobeto, ekar dezakeena. Joxe Azurmendi

Irizpide **erlatibista** eta historizista honek sekulako eragina izan du artearen historialarien belaunaldi oso batengan. Josu Zabaleta

Horixe da "la défaite de la pensée": metafisika gabe geratutako pentsamenduaren porrota kaos **erlatibistan** . Joxe Azurmendi

Aniztasun historiko edo kulturala onartzea bat etor daiteke ikuspuntu **erlatibista** batekin zein antierlatibistarekin. Askoren artean

Zalantza gabe gaur euskaldun eta abertzale asko da halere **erlatibista** . Joxe Azurmendi

2 (izen gisa)

Fundamentalistak uste duenaren aurka, ordea, **erlatibista** ez da balio absolutuei uko egin dien inmoralista. **Erlatibistak** konbatitzea, beren beldurrak konbatitzea eta segurtasuna segurtatzea besterik ez da. Joxe Azurmendi

Orain artean ikusten ari garena, komunikabideetan **"erlatibisten"** burlak eta irainak ugaritzea eta geroz handiagotzea besterik ez da. Joxe Azurmendi

---

erlatibitate 1 *iz* Einsteinek adieraziriko teoria, zeinaren arabera lege fisikoak eraldatzen baitira erreferentzia sistema aldatzen denean.

Gero **erlatibitatea** etorri zen ordea, eta kuantuaren mundua. Fernando Morillo

Kanten obrak pizturiko eztabaida eta pentsamendu mugimendu garrantzitsuenen berri ere ematen digu, jakintza molde diferenteetan izaniko inplikazioak barne -mekanika kuantikoan, **erlatibitatean** , matematika ez-euklidearrean, adibidez-. Markos Zapiain

Bitxia bada ere, fisikaren teoriak, hala nola **erlatibitatea** edo erlazio kuantikoa, ez ditu noski ulertzen publikoak, baina inork ez ditu auzitan jartzen. Juan Garzia

Garaiko zientzia fisiko-matematiko berria ez zen ez Kantena ez Newtonena, fisika kuantikoarena eta Einstein-en **erlatibitatearen** fisika baizik. Askoren artean

Gonbidatuek unibertsoaren sorreraren, kosmologiaren, nanoteknologiaren, zulo beltzen, mundu kuantikoaren, eta **erlatibitatearen** gainean berba egingo dute, besteak beste. Berria - Harian

Erlatibitatearen teoria zuzena ez dela? Fernando Morillo

Erlatibitatearen Teorian sinetsita ere, ezin zen gelako sabaia izan bueltaka ari zena. Fernando Morillo

1905ean formulatu zituen **erlatibitatearen** teoria bereziaren legeak. Pello Salaburu

Dena esan behar bada, gaztelaniaz ere gizona ez zen **erlatibitatearen** formula ulertzeko gai diren horietakoa. Ramon Saizarbitoria

1905. urtean plazaratu zuen Einsteinek EBT **Erlatibitate** Bereziaren Teoria. Berria - Gaiak

1915ean, **erlatibitate** orokorraren teoriarekin, espazioa eta denbora bateratu zituen. Berria - Harian

Horrela sentituko zen Einstein, suposatu zuen, **Erlatibitate** Orokorraren ekuazioak lortu ondoren. Fernando Morillo

2 erlatibotasuna.

Ni nere buruarekilako harremanetan sartua naiz, **erlatibitate** absolutu batean, honela erratea posible balitz. Piarres Aintziart

---

erlatibizatu, erlatibiza, erlatibizatzen *(orobat **erlatibatu** g.er.)* du *ad* erlatibo bihurtu.

Bizitzak, nire arazoak gorabehera, aurrera egiten zuela eta nire egoera **erlatibizatu** beharra neukala. Patxi Zubizarreta

Gertakari horiek atzeman nahi badira, 'subjektutzat' ulertzen dena **erlatibizatu** beharra dago. Itziar Laka

Jakin badakigu ebazpenak **erlatibizatu** egin behar direla; ez du merezi horri bueltak ematerik. Ana Urkiza

Analogiaren ikusmolde "absolutista" hori **erlatibizatu** egin behar da, beraz. Josu Zabaleta

Txanponaren beste aldeari erreparatuz -alegia, gure ikuspegi kritikoa **erlatibizatuz**-. Iñaki Heras

Frantzian ere zigortua da holokaustoa **erlatibizatzea**. Berria - Mundua

Zuzenbidea, gure askatasuna, morala, gure idealak, gure borroka, bizitzaren balioa, Giza Eskubide Naturalak berak (ez dago torturatzerik!), Euskal Herriaren eskubide nazionalak ere bai, ezin onar genezake dena **"erlatibizatzea"** eta airean uztea. Joxe Azurmendi

Ordurako jada zenbait bidaia-berriemaile eta historialari grekok begi zoli apartak erakusten ditu herrien arteko diferentziak atzemateko eta grekotasuna **erlatibizatzeko**. Askoren artean

Askotan diodanean, *gehienetan* esan nahi dut, edo *guztietan,* hitza gehiegizkoa ez balitz Borges bezala ispilu-irudiz dena **erlatibizatzeko** joera zuen batentzat. Iban Zaldua

Orain, gehiago **erlatibizatzen** dut lehiaketen garrantzia. Berria - Kultura

Baina izpiritu burgesak, guzia **erlatibizatu** zuen izpiritu ilustratuak, ezin nau jasan ni, bere erlatibo usteko absolutuaren mozorroa salatzen baitut. Patziku Perurena

Erlatibizatzekoak dira gauzak, itsusiak eta ederrak, onak eta txarrak, txikiak eta handiak, alde bakoitzean bietarik zerbait badagoelako. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erlatibizatu beharra (5); **erlatibizatu egin** (5); **erlatibizatu egin behar** (3)

---

erlatibizatzaile *izond* erlatibizatzen duena.

Adibide egokia da Argentinako krisia testu honetan zehar defendatu den ikuspegi **erlatibizatzailearentzat**, hainbat mito eta topikoz horniturikoa baita gainera. Iñaki Heras

Joko honetan ere **erlatibizatzaileak** izan beharko dugu. Iñaki Heras

---

erlatibizatze *iz* erlatibo bihurtzea.

Nabardurak, hausnarketa sakona eta **erlatibizatzea** ezinbestekoak ditugula aterako zaigu. Iñaki Heras

Izan ere, **erlatibizatzeak** nazismoa eta komunismoa lotsa barik parekatzea dakar, bien oinarriak berdinak balira bezala. Berria - Harian

---

erlatibizazio *iz* erlatibizatzea.

Oraingoz teoria soziologikoaren maila objektiboa gailendu ez duen **erlatibizazio** ahalegin horretan jarrera antidogmatikoa ere ageri da maiz. Askoren artean

---

erlatibo **1** *izond* beste zerbaiten arabera hartzen dena, absolutua ez dena.

Garbi dago azenturik gabeko bokalak asko ahuldu daitezkeela azentudunaren ondoan (eta azentudunaren indar **erlatiboa** handitu horrela). Lourdes Oñederra

Erabat hartuta, ez; zentzu **erlatiboan** hartuta, bai. Josu Zabaleta

Lehengaien eskariaren (eta, hortaz, prezio **erlatiboen**) bilakaera kaltegarriak, epe luzera, espezializazio mota horretatik aldentzera eraman zuen. Koro Navarro

Airearen hezedura **erlatiboa**, % zenbakietan hartuta. Pello Zabala

Urrearen eta zilarraren urritasun **erlatiboaz**. Iñaki Iñurrieta

Keynesek behar absolutuak eta behar **erlatiboak** bereizten zituen: behar absolutua besteen egoera edozein dela ere sentitzen ditugunak dira, eta **erlatiboak**, berriz, besteei begira sortzen zaizkigunak. Iñaki Heras

Gehiago dutenek gehiago ordaintzen dute, eta ez soilik termino absolutuetan, baizik eta baita **erlatiboetan** ere (gero eta errenta handiagoa, orduan eta zerga-tasa handiagoa). Iñaki Heras

Printzipioz, bortxa praktikatu eta justifikatu, historiari begiratzen badiozu, balio absolutuekin eta balio **erlatiboekin** berdintsu egin daiteke, dirudienez. Joxe Azurmendi

[Aristotelesek] ez zituela errealitate egonkorra (absolutua) eta errealitate higikorra (**erlatiboa**) bereizten. Askoren artean

Dolarraren goraldiak ez zion ekonomien lehiakortasun **erlatiboari** bakarrik eragin. Koro Navarro

Urrearen eta zilarraren urritasun **erlatiboaz**. Iñaki Iñurrieta

Handikeriak eta absolutuak ahaztu eta giza unibertso **erlatibo** txikia deskubritu eta maitatzea bere ikasgairik premiazkoena lukeen kalegorri honetan. Joxe Azurmendi

Distantzia **erlatibozko** adierazleak oso garbiak ez direnean, gauzak distantzia berera baleude bezala azaltzeko joera dago. Josu Zabaleta

Estatus hori ez da sekula ere ez behin betikoa, alda daiteke, **erlatiboa** da eta beti jar daiteke berriro zalantzan. Xabier Arregi

Kalitatea **erlatiboa** eta subjektiboa omen da. Iñaki Heras

Balio denak **erlatiboak** dira, arrazoiak ere denak **erlatiboak** dira. Joxe Azurmendi

Ondoren etorri ziren dolarraren debaluazioak, Estatu Batuen indarraren ahultze **erlatiboaren** adierazgarri dira. Koro Navarro

Gure aberri pobreak eta kultura kaskarrak balio oso **erlatiboa** du, hori egia da. Joxe Azurmendi

Erran ahala ohartu nintzen zein **erlatiboa** den maiztasunaren kontzeptua, are gehiago haur tiki batendako. Aingeru Epaltza

2 gramatikan, dagokion perpausa mendeko bihurtzen duena.

Gogor estudiatu behar genuen, baina ez zen erraza gogoa liburuetan atxikitzea, izenorde **erlatiboak** bere antezedentearekin jeneroan eta numeroan izan behar zuen konkordantzian. Joseba Sarrionandia

Lokailu **erlatiboak** erabiltzen hasi behar dugu beldurrik gabe. Pello Salaburu

Erlatibo "aurreratuetara" itzuliko naiz, edo "ezen" horietara, edo "baizik (eta)" edo gure tradizioan lekua duten esaldi mota horietara. Pello Salaburu

Erlatibozko perpaus osoa. Itziar Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airearen hezedura erlatiboa (3); **airearen hezetasun erlatiboa** (6); **balio denak erlatiboak** (3); **balio erlatiboa** (6); **da erlatiboa** (5); **dena da erlatiboa** (4); **dena erlatiboa** (5); **denak erlatiboak** (5); **denak erlatiboak dira** (4); **dira erlatiboak** (3); **erlatibo bat** (3); **erlatiboa baino** (3); **erlatiboa baita** (3); **erlatiboa da** (29); **erlatiboa da eta** (3); **erlatiboa dela** (8); **erlatiboak dira** (10); **erlatiboak direla** (5); **eta erlatiboa** (3); **eta erlatiboak** (3); **gauza erlatiboa** (4); **gehiengo erlatiboa** (3); **hezedura erlatiboa** (3); **hezetasun erlatiboa** (8); **hori erlatiboa** (6); **hori erlatiboa da** (4); **indar erlatiboa** (3); **oso erlatiboa** (8); **oso erlatiboa da** (4); **ugaritasun erlatiboaren** (3)

---

erlatiboki **1** *adlag* era erlatiboan.

Erabat arbitrarioa dena, eta **erlatiboki** arbitrarioa dena. Isabel Arrigain

Nabarmena da /f/ **erlatiboki** berria dela euskararen fonema sisteman; posible da inguruko hizkuntzetatik sartua izatea. Lourdes Oñederra

Diptongoa bi fonema dituen katemaila inplosibo bat da, bi fonema horien bigarrena **erlatiboki** irikia duena. Isabel Arrigain

Herrialde jakin batean prezioek gora egiten badute, herrialde horrek nazioartean lehia-ahalmena gal dezake, bere ondasun eta zerbitzuak **erlatiboki** garestiagoak bilakatu. Iñaki Heras

Eremu artikulatorio **erlatiboki** txikian, bereizkuntza fonologiko garrantzitsuak gertatzen dira. Lourdes Oñederra

Gizarte eragileak normalizazio planen bidea jorratzen hasten badira, beste eszenatoki batera irits gaitezke denbora **erlatiboki** laburrean. Berria - Euskal Herria

Aski arrazoi izan dezaket zerbait **erlatiboki** onartzeko (suppositio relativa) hori erabat onartzera baimendua izan gabe (suppositio absoluta). Ibon Uribarri

Beraz, sorlekua utzirik, **erlatiboki** (gero eta erlatiboagoki) gazte nintzalarik, Amazoniara joan nintzen, kuraiez beterik. Jon Alonso

Printze batek bere estatuan dirutza handiak biltzen baditu, dirua urria izan daiteke errealki, eta ugaria **erlatiboki**. Iñaki Iñurrieta

Baso handiak ditu eta populazioa txikia da (8 milioi), **erlatiboki**. Berria - Harian

Hizkuntza horietan **erlatiboki** asko direlako erroari gehi dakizkiokeen atzizkiak. Lourdes Oñederra

Oraindik ere, lasai esan daiteke **erlatiboki** gutxi direla aipatu liburua eta Trubetzkoy-ren beste lanak irakurri dituzten fonetikari eta are fonologialariak ere. Lourdes Oñederra

Espektrograma batean **erlatiboki** ongi bereizten diren marra multzo horizontaletan ikusten dira. Lourdes Oñederra

Eraispen-lanak **erlatiboki** errazak izaten ari ziren, eta **erlatiboki** goiz bukatuko ziren. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
da erlatiboki (3); **erlatiboki arbitrarioa** (3); **erlatiboki txikia** (3); **eta erlatiboki** (6)

---

erlatibotasun *iz* erlatiboa denaren nolakotasuna.

Niretzat, gauza guztien **erlatibotasunaren** barruan, grabitatea egia absolutua da. Josu Zabaleta

Guri ezagutzeko ematen zaigun ororen **erlatibotasuna** esan nahi du erlatibismoak. Joxe Azurmendi

Erlatibotasunak ez du balio eskasa edo inportantzia gutxi esan nahi; esan nahi du, guk ezagutzen dugun oro, kondizio batzuekin eta harreman edo erlazio sistema batean ezagutzen dugula. Joxe Azurmendi

Erlatibotasun hori hautsi egin da zenbaitetan, historialari batzuek ziurtasun osoa eman baitiete festa berezi honen jatorriari eta zentzuari buruz egin dituzten ikerlanei. Askoren artean

Erlatibotasun horrek, gainera, gauzak bere tokian uzten ditu, utopiak betidanik izan baitu profezian jausteko tentazioa. Txema Ramirez de la Piscina

Ondo begiratuta, antropologo hauek dagitena ez da antirrelatibista, justu ikerketan **erlatibotasunari** jaramon gehiago egiteko esijentzia baizik. Joxe Azurmendi

Aurreko esaldietan erabilitako konparazio atzizkiak ozentasunaren **erlatibotasunari** dagozkio: hotsak ez dira ozen edo ahul, beste bat baino ozenago edo ahulago baizik. Lourdes Oñederra

Sofista grekoek balio ororen **erlatibotasunetik**, diskurtsoaren eta erretorikaren garrantzia ondorioztatzen zuten. Joxe Azurmendi

Arrazoimenak "esentziak" atzematen dituela, suposatzen da platonikoki, esperientziaren **erlatibotasun** belaska transzenditu. Joxe Azurmendi

Erlatibotasunak erlatibotasun eta gertatuak gertatu, lehiaketa honek on handia dagie kulturgintzan eta herrigintzan dabiltzanei, politikaren eremuko uhinek literaturaren oinak tarteka laztantzen ere badakitelako. Patxi Zubizarreta

---

erlato ik **errelatu**.

---

erlats *(orobat **erlas** g.er.)* **1** *izond* erlastua, marrantatua.

-Dembak barre labur, **erlats** bat egin zuen. Anton Garikano

Xuxurla **erlats** baina zoli batez hitz egiten zuen. Jose Morales

Barrenaldeko boz **erlats** batek *Avanti!* erran zigun, eta osabak atea ireki zuen. Joan Mari Irigoien

Sarjentaren ahots beti **erlats** eta koleratua. Xabier Montoia

Tronpak murmurio lodiz urruma astuna egiten duenean eta inguru barbaroak, aztoraturik, hura burrunda **erlats** bihurtzen duenean. Xabier Amuriza

Harriaren kontra zorrozten ari zirelarik, tailuak egiten duen kurrinka kirats eta **erlats** bezalako zerbait, beharriak kexatzen eta nardatzen duena. Michel Oronoz

Ahotsa ozena du eta **erlats** samarra. Oskar Arana

-Esan al du Tierney jaunak noiz itzuliko den? -galdetu zuen falsetto **erlats** batean. Irene Aldasoro

2 (adizlagun gisa)

Berotasunez gorrituta, totelka, **erlats** eta fanatismoz jarraitu zuen: [...]. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ahots erlatsez (7); **erlats eta** (4); **eta erlats** (3); **eta erlatsa** (3)

---

erlatxori *iz* txori intsektujalea, moko-luzea, lumak horiak, arreak, eta urdinkarak dituena*(Merops apiaster)*.

Ez zirela loroak azaldu zigun berak, baizik eta **erlatxoriak** -abejarucos-, eta gu ginela girotzeko premia zeukaten bakarrak. Bernardo Atxaga

---

erlauntz *(orobat **erlauntza**)* **1** *iz* erlekumea hartzeko prestatzen den babesa. ik **eultze; kofoin; abaraska**.

-Ez, ez da enborra -hasi zen Matilde-, **erlauntza** da. Unai Elorriaga

Baten batek egon behar du **erlauntzaren** ondoan erlekumea irteten denean. Unai Elorriaga

Erleak erlasemea egiten duenean, **erlauntza** berri batera eramaten da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bitarte horretan **erlauntza** aztoratu bat zirudien aldagelak. Irene Aldasoro

Azaldu zion erle gehiegi jaiotzen direla batzuetan **erlauntzean** eta erlamak ezin dituela denak kontrolatu. Unai Elorriaga

Marielexan egon zenean han zeuzkan **erlauntzetatik** ateratzen zuen eztia bezain gozoagorik ez duela lortu Bixkiturrin daramatzan azken urteetan behin ere. Pako Aristi

Ezkien parean geunden eserita, aitaren **erlauntzen** parean, baina **erlauntzak** hutsik zeuden jadanik. Ander Irizar

Erle jaioberri horiek alde egiten dute **erlauntzetik**. Unai Elorriaga

Duela bi urte zoragarria zen: begiak itxi, eta berehalaxe nuen burua **erlauntza** baten gisa burrunbaka, aurpegiak ikusten nituen berriz, arbolak, etxeak. Monika Etxebarria

Sagasti zaindu gabe bat, **erlauntza** multzo bat bertan behera utzia, etxola bat basoan astigar-ziropa distilatzeko. Oskar Arana

Haurrik gabeko etxea erlerik gabeko **erlauntza** da. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Horiek zenbatuta, hizkuntz **erlauntz** izugarria da Europa. Ni gabe, dena itzaliko da munduaren **erlauntza** erraldoian. Berria - Euskal Herria

Horixe da ez ur berorik ez kiroldegirik ez zeukaten oxtabena zaharretatik terapia psikiatrikoz eta tresneria elektronikoz kontrolatzen gaituzten **erlauntza** garbi berrietara nik ikusten dudan alderik handiena, giltzadunen endekatze morala. Koldo Izagirre

Bertso eskolen eta Bertsozale Elkartearen **erlauntzetan**, xinaurri atomikoak balira legez musu trukean aritzen diren aingeru guardakoak, ospeaz eta sosaz ontsa futitzen direnak. Berria - Kultura

Eguzkia gordetzen delarik, beirak eta kriseiluak pizten direneko, hiria itzarri egiten da, biziaren dardara hautematen da nonahi, alegeratasunaren zipriztina, higitzen hasia den **erlauntza** duzu. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erlauntza baten (3); **erlauntza da** (3); **erlauntza erraldoi** (3); **erlauntza galtzen** (3); **erlauntzaren ondoan** (3)

---

erlaxagarri *izond* erlaxatzen duena.

Testua, batzuetan, ardo botiletan etortzen diren azalpenak bezain poetikoa egin zait, kantu gozo bat bezain **erlaxagarria**. Patxi Zubizarreta

-Bai, oso **erlaxagarriak** -esan zuen Begoñak maltzur. Patxi Iturritegi

---

erlaxapen *iz* erlaxatzea.

Gorputzari itsasten dio bere indar basatia, eta meneko baten eskuzabaltasunaz eskaintzen bere mehatxuzko orroa, bere oreka kilikagarria, eserlekuaren leuntasuna, eta esanekoaren prestutasunaz obeditzen, eskuin eskuko **erlaxapenari** run-run xaramelari batez erantzunez. Pako Aristi

Atzera begiratu eta, garai batean bere inguruan bat eginda zegoen jendea, izarrek egin moduan erabat urrundua eta hutsaldua ikusirik atsekabetzen denari memoriak eskaintzen dio, unibertsoaren **erlaxapenak** planetei ez bezala, babes, gordeleku, sendatoki eta batasun gune. Pako Aristi

Oraindik ez dut ikasi deszifratzen poltsak beteak sentitzen dituen jende horren aurpegian ageri den keinuaren deitura, poltsen pisuak besoetan eragindako nekearen ondorioz gorputz osora zabaltzen zaien **erlaxapen** moduko horren izena. Pako Aristi

Niri beti gustatu izan zaidana buztana txoko goxoan gorderik edukitzea baita, baina noizbehinka -arestian esan bezala- uzkiak sortzen dizkigun plazerra eta **erlaxapen** sentsazioak sentitu nahi izaten nituen. Aitor Arana

---

erlaxatu, erlaxa, erlaxatzen *(orobat **erlajatu** g.er. eta **errelajatu** g.er.)* **1** da/du *ad* zerbaitek, eskuarki gihar batek, uzkurturik edo tenk egoteari utzi.

Eskua beheratzerakoan, trizepsa uzkurtu egiten da (ukondoari luzatzea eraginez), eta bizepsa, **erlaxatu** egiten da. Irene Aldasoro

Kontua da senarrak aholkatutako arnas ariketak eginda ere ez nintzela ohitzen, ez nintzela **erlaxatzen**. Jasone Osoro

Iruditzen zitzaion Idazlea apur bat **erlaxaturik** zebilela, tentsioa galduta bezala. Jon Alonso

Begigainak astundu egin zitzaizkion, zikomotrizitate sistema **erlaxatu**. Unai Iturriaga

Erlaxatu bene-benetan, lasaitu giharrak, beso zabalik esperoan bazeunde bezala. Karlos Zabala

Igerika ibiltzeak **erlaxatu** egin gaituelako. Patxi Zubizarreta

Egia da, bai, bihotz-muskuluak ongi betetzen duela bere egitekoa: uzkurtu eta odola arterietara ateratzen duela eta **erlaxatu** eta berriro odolez betetzen dela. Irene Aldasoro

Akupunturak **erlaxatu** egiten du eta erretzeko gogoa kendu. Berria - Euskal Herria

Nire kezka guztien gainetik, kanta bat abesten ari zen -agian giroa pittin bat **erlaxatu** nahian- nik giltza sarrailan sartu nuenean. Joxemari Iturralde

Berriketan jarraitu dugu, gero eta **erlaxatuago**. Jon Arretxe

Gehiegi **erlaxatuta** zelairatuz gero, badakigu denok zer gerta daitekeen. Berria - Kirola

Diziplina **erlaxatuta**, dantza bakanal batean galdu ziren. Julen Gabiria

On egingo zion biriketara aire freskoa sakonki barneratzeak, on egingo zion **erlaxaturik** paseatzen ibiltzeak. Joxemari Iturralde

Juan Jose Mujika Gipuzkoako Ogasun diputatuak jendaurreko oharra egin zien ondarearen gaineko zerga aitortzerakoan **«erlaxatu** diren gipuzkoarrei». Lasaitzeko ariketak landu ditugu, hobeki errekuperatzeko eta **erlaxatzeko**. Berria - Ekonomia

2 (era burutua izenondo gisa)

Aldiro adierazi behar izaten nien emakume bezeroei gorputz **erlaxatu** batek baizik ez duela lurrin baten aukera guztien berri ematen. Joxan Elosegi

Bata bestearen alboan, gorputz biluziak, izerdituak, bigunak, **erlaxatuak**, laztanka sentituz. Sonia Gonzalez

Patakik etsipen keinu bat egin eta Martari zigarroa piztu zionetik galdua zuen jarrera **erlaxatura** itzuli zen. Harkaitz Cano

Sentipen konpartitu eta **erlaxatu** bat. Harkaitz Cano

Aurpegian ez daukat espresio berezirik, nahiz eta **errelajatu** itxura ematen dudan eskuak poltsikoetan sartuta dauzkadalako. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erlaxatu egin (4); **erlaxatu egiten** (3); **erlaxatu eta** (4); **eta erlaxatu** (3)

---

erlaxatzaile *(corpusean **erlajatzaile** soilik) izond* erlaxaten duena.

"Entzun dezagun hau isil-isilik, oso **erlajatzailea** da", esaten zuen Dorak. Bernardo Atxaga

---

erlaxatze *iz* zerbaitek, eskuarki gihar batek, uzkurturik edo tenk egoteari uztea.

Lauzpabost arnasketa bortitz egin zituen hantxe bertan, kirolarien **erlaxatze** ariketak imitatuz. Pedro Alberdi

Umore uneek, beraz, beren garrantzia dute emanaldian zehar, eta haien artean oso interesgarriak dira **erlaxatze** saioan entzuten ditugun hitz potoloen gaineko ironia. Berria - Kultura

Gorputza zutik edo mugimenduan dagoela orekari eusteko ezinbestekoa den muskuluen uzkurtze eta **erlaxatzea** erregulatzen du organo horrek. Irene Aldasoro

---

erlaxazio *(orobat **erlajazio** g.er.) iz* erlaxatzea.

Maila sozialean, demokraziaren gaineko halako sinesgarritasun galera garbi bat gertatu da, gatazka kolektiboak konpontzeko sistema gisa, eta gizarte ehunaren **erlaxazioa** eta giza baloreen eta balore tradizionalen gainbehera sumatzen da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erabateko **erlaxazio** eza agerian uzten duen postura, besoak guztiz beheratu gabe, gerri pare horretan edukirik, pistola istantean atera ahal izatea errazten diena. Patxi Zubizarreta

Hura ez zen berez bainuetxe batean emandako oporraldia, dena luxu eta **erlaxazioa**, baina niretzat berdina izan zen atseden-efektua. Xabier Mendiguren Elizegi

Erlaxazio ariketa bereziak egin behar izan ditu hamar minutuz opera hasi aurretik, hauspoa lasaitu eta nerbioak uxatzeko. Harkaitz Cano

Luzaketak, arnas ariketak, taldeko dinamikak, teknika psikokorporalak, **erlaxazio** eta bisualizazio teknikak. Berria - Harian

---

erlazio *(orobat **erlazione** g.er.)* **1** *iz* gauza edo pertsona bi edo gehiagoren arteko nolabaiteko lotura.

Hizkuntzalaritzak fisiologiarekin dituen **erlazioak** edo lotuneak. Isabel Arrigain

Handiagoa izatea, bestalde, **erlazio** bat da. Askoren artean

Irudiaren osagarrien artean bada elementuak berak baino sakonagokoa, eta elementu horiek deseginagatik desegiten ez den **erlazio** bat. Josu Zabaleta

Zer **erlazio** dago formaren pertzepzioaren eta mugimenduaren pertzepzioaren artean? Josu Zabaleta

Hala ere, onartu zuen defizitaren eta interes tasen igoeraren artean **erlazioa** dagoela. Berria - Ekonomia

Kontu korronteen balantzak herrialdeen arteko ondasun, zerbitzu, errenta eta inbertsioen **erlazioak** neurtzen ditu. Berria - Ekonomia

Zer **erlazio** dagoen makinak egiten duen lan onuragarriaren eta erregaitan behar duen energiaren artean. Irene Aldasoro

Garai hartan Slobodan Milosevic Jugoslaviako presidentea zen, eta erregimen komunistekin **erlazioa** zuen agintari bakarra zen. Berria - Mundua

Disziplina horiek, hizkuntzarekin duten **erlazioarengatik** soilik dute lekua linguistikan. Berria - Kultura

Linguistikaren gaia eta zeregina; bere inguruko zientziekiko **erlazioak**. Isabel Arrigain

Beste horrenbeste esan daiteke adimenaz eta nahimenaz; adimen eta nahimen esaten baitzaie zerbaitekiko **erlazioan** daudelako. Imanol Unzurrunzaga

Barne menpekotasunezko **erlazio** batez uztartuak. Isabel Arrigain

Irisak zehazturiko eremu maximoa eta minimoa 16:1 inguruko **erlazioan** daude. Irene Aldasoro

Ate gaineko frisoak estilo doriarrean esan bezala egin beharko dira, **erlazioan** dauden neurriak erabiliz. Santiago Iruretagoiena

Zelako ezagutza lortzen dugu, esaterako, masa eta energia kontzeptuak **erlazioan** jartzen ditugunean e=mc2 ekuazioan? Askoren artean

Laugarren Zatiko Axioma, gauza singularrei dagokie, denbora eta leku jakinekin duten **erlazioan** hartzen diren bezainbatean. Piarres Xarriton

Proportzioa **erlaziotik** sortzen da, grezieraz *analogia* esaten den horretatik. Santiago Iruretagoiena

Matematika bidez adierazita: a/b=b/ (a b); proportzio horrek, aise egiazta daitekeen bezala, 1,618-ko **erlazio** bat ematen du aldeen arterako. Josu Zabaleta

Auto osoaren pisu minimoa bere horretan utzi duenez, pisu/potentzia **erlazioak** okerrera egin du eta mantsoago joan behar lukete. Berria - Kirola

Beste indize praktiko bat ere bada motorraren errendimendua neurtzeko: potentzia/pisua **erlazioa**. Irene Aldasoro

Herria/hizkuntza/pentsamendua **erlazioa** razionalki zehaztu, ez da sekula egiten. Joxe Azurmendi

2 (-en arteko-ren eskuinean)

Uste dut gu bion arteko **erlazioak** urduri jartzen nauela. Xabier Paya

Geneen eta proteinen arteko **erlazioa** definitzea. Juan Garzia

Zein da, adibidez, partikulen mekanika klasikoaren eta erlatibitatearen arteko **erlazioa**? murriztapenarena, muga-kasuarena, egokitasunarena (korrespondentzia), idealizazioarena...? Askoren artean

Horiek horrela, orokorrean, harrapakin eta harrapariaren arteko **erlazioa** guztiz dinamikoa dela ondoriozta daiteke. Berria - Gaiak

Munduko BPGaren eta mundu mailako ekoizpenaren arteko **erlazioa** %26 zen 1998an. Koro Navarro

Artelan bat -edo giza espirituaren edozein sorkari- organikoa dela esan ahal izateko, obra horren osagaien arteko **erlazioak** osagaiak berak bezain garrantzitsua behar du izan. Josu Zabaleta

Anbiguotasun gramatikal hauek esaldi baten barruan hitzen arteko **erlazioak** argiak ez direnean agertzen dira. Iñaki Arranz

Gizarteko kideen arteko **erlazioak** erregulatzen dituen tradizio eta instituzioak [...] ekonomia hazkunde eta garapenerako berebiziko eragina dute, hala nola familia patriarkalak, edota emakumearen bazterketak. Iñaki Heras

Ruche jaunak zirrara sentitu zuen ikusirik nolako interesa pizten zioten Talesi objektu matematikoen arteko **erlazioek**. Jon Muñoz

Irudi jakin baten eta bere hartzaile jakinaren arteko **erlazioaren** alderdi nagusiak. Josu Zabaleta

Newtonen ideien arabera, aldagaitza da uhin-luzeraren eta kolorearen arteko **erlazioa**. Xabier Olarra

Irudiaren eta errealitatearen arteko **erlazioa**. Josu Zabaleta

Teoria zientifikoen arteko **erlazioen** tipologia ezartzea. Askoren artean

Alkoholaren eta literaturaren arteko **erlazioaz** ikerketa egin nahi duenak, badu nora jo. Matías Mujika

Aldakuntza faktoreek, beti, lerraketa bat gertarazten dute adieraziaren eta adierazlearen arteko **erlazioan**. Isabel Arrigain

Nahikoa da sail horiei gain-gainetik begiratzea grezierazko eta latinezko paradigmen arteko **erlazioaz** ohartzeko. Isabel Arrigain

Teoriaren eta esperientziaren arteko **erlazioaren** atal desberdinak argitzeko. Askoren artean

"Zentzu" eta "erreferentzia" kontzeptuen arteko **erlazioa**. Askoren artean

Irudiaren eraginaren gai teorikoarekin batera indarrez agertzen da beste erlazio bat: irudiaren ikuslearen eta irudiaren sortzailearen arteko **erlazioa**. Josu Zabaleta

Egia zientifiko eta profetikoaren arteko **erlazioaren** problemaren benetako konponbidea. Iñaki Mendiguren

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Erlazio sendoa dago bigarren eta hirugarren mailen artean. Xabier Kintana

Saiakeren artean, hark zuen, dudarik gabe, **erlaziorik** onena: "ospe maila/orri kopurua". Jon Muñoz

Irudiaren eta ilusioaren arteko **erlazio** korapilotsuak. Josu Zabaleta

Neska-mutilen eta andre-gizonen **erlazio** publikoek siziliano samarrak dirudite Pasaian. Koldo Izagirre

Erakundeek eta **erlazio** politikoek langabeziaren arazoan duten eraginari buruz. Iñaki Heras

Oso **erlazio** ona dut beraiekin. Berria - Kirola

Ja ez omen baikara bizi Erdi Aroko bastida edo hiri harresitu bateko unibertso inguratu txikian, hor gizon-emakumeen arteko **erlazio** sinpleak arautzeko aski omen baitzen intentzioaren kontsiderazioa. Joxe Azurmendi

Gainerako giza erakundeak -ohiturak, legeak eta abar-, denak, neurri desberdinetan, gauzen arteko **erlazio** naturalean daude oinarrituak. Isabel Arrigain

Ekoizpen-unitateen arteko **erlazio** horizontalak. Koro Navarro

Izaera bera al du **erlazio** kausalak maila psikologikoan eta fisikoan? Askoren artean

Oro har, agerian geratu zen egitura kimikoaren ezaugarriek ez zutela **erlazio** esturik usainarekin. Irene Aldasoro

Hizkuntzalaritzak **erlazio** hertsiak ditu beste jakintzekiko: batzuek datuak mailegatzen dizkiote eta beste batzuek hartzen. Isabel Arrigain

Era berean, Jainkoaren Semearekin nolabaiteko **erlazio** sinboliko berezia zuten gauza guztiak maitasun handiagoz besarkatzen zituen eta gusturago kontenplatzen. Askoren artean

Hizkuntzalaritza sinkronikoa batera gertatzen diren eta sistema bat osatzen duten **erlazio** logiko eta psikologikoez [...] arduratuko da. Pablo Sastre

Interpretazio-eremua zenbaki arruntena bada, sinboloaren interpretazioa zenbaki arrunten arteko **erlazio** bitar bat izango da, esaterako, "txikiago izan". Askoren artean

Diskurtsoan **erlazio** sintagmatikoak sortzen baitira hitzen artean. Isabel Arrigain

Soldata nominalen hazkunde-tasen eta langabezia-tasen alderantzizko **erlazioa**. Koro Navarro

Ezinezkoa da proportziozko **erlazio** hauek teatro guztietan gorabehera guztiei ondo erantzuteko balio izatea. Santiago Iruretagoiena

Zer da, berez eta zuzenean, maitasunezko **erlazio** hori, zer da, zehazki, maitatzea? Jenaro Garate

Harentzat ederrena, halako harreman antzu bat postazko **erlazio** bihurtzea zen. Anton Garikano

Sistema kapitalistak [...] lanaren nazioarteko zatiketa sortzen du, mendekotasunezko **erlazioak** eta elkartruke asimetrikoak dituen zatiketa. Iñaki Heras

Film bateko planoen muntaketa, beren artean denborazko **erlazio** inplizituak baizik ez dituzten denbora-blokeen kateatze bat dela. Josu Zabaleta

Beste alderdia, espazio material, "konkretu" bat, irudiaren balio plastikoarekin zuzeneko **erlazioa** duena, azpimarratu izana da haren ekarpen original nagusia. Josu Zabaleta

Konkurrentziak jartzen die bidezko prezioa salerosgaiei, lehiak ezartzen ditu benetako **erlazioak** haien artean. Iñaki Iñurrieta

Ez dagoelako beharrezko **erlaziorik**, hotsaren eta esanahiaren artean. Isabel Arrigain

Antzeko **erlazioa** aurkitzen omen da latinez ere *humus* eta *homo* hitzen artean ere. Xabier Kintana

Badira, ordea, espazioarekiko bestelako **erlazio** batzuk, irudiak aurkitu baino lehenagokoak. Josu Zabaleta

Bilakaera fonetikoak hitz bateko bi forma flexiodunen arteko ohiko **erlazioa** hausten du. Isabel Arrigain

Idazkeraren eta hizkuntzaren artean dagoen benetako eta bidezko **erlazioa**. Isabel Arrigain

Harmonia musikalak adierazteko gauza suertatu ziren zenbakizko **erlazioak**! Jon Muñoz

Errealitatea, pentsamendua eta hizkuntza bereizi ezinezko **erlazioan** azaltzen zaizkigu. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurreko gauzak aldatu eta hil zirenean, ez zen izan Jainkoagan (gorets bedi!) inolako **erlazio** aldaketarik. Xabier Kintana

Bere bizi-egitasmoak, ingurukoarekiko bere **erlazio**-antolakuntzak ezinbestean egon beharko dutela esperantza eta beldurraren alderantzizko afektu-bikote hori tartean dutela. Gizartea gizabanakoen arteko **erlazio**-sistema bat dela. Piarres Xarriton

Teoria konparatibistetan (eboluzionismo sozialean bezala), herrien arteko ezberdintasuna aztertzen da **erlazio**-printzipio orokor bat dela medio. Askoren artean

Hemen, berriro ere, **erlazio**-adierazpen bat agertzen zaigu, eta hasierako egoeran gaude. Askoren artean

Predikatu- edo **erlazio**-sinbolo n-tar bakoitzaren interpretazioa. Askoren artean

Erlazio mota nekagarria zen, nolanahi ere. Anton Garikano

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ekonomiak produkzioa gidatzen duten giza **erlazioak** aztertzen ditu. Iñaki Heras

Bikote **erlazioen** aldaketa. Mikel Hernandez Abaitua

Espazio-**erlazio** jakin batzuek egon beharko dute osagarri horien artean, giza irudi bezala ezagutu ahal izateko. Josu Zabaleta

Elkarrekiko denbora-**erlazio** batean dauden bi egoera. Ibon Uribarri

Herrialde boteretsuenen arteko orekak, argi dago, ez du indarren berdintasunik adierazten, ezta nagusitasun-**erlaziorik** ez dagoenik ere. Koro Navarro

Indar-**erlazio** politiko berrien bila. Iñaki Heras

Askotan azpimarratu izan du argazkiak bere sorburu duen errealitatearekin zeinu-**erlazioa** ez baina zantzu-**erlazioa** duela gehiago. Josu Zabaleta

Nonbait badago mendekotasun **erlazio** bat mundu honetan. Askoren artean

Erlazio sintagmatikoak eta elkartze **erlazioak**. Isabel Arrigain

Hori defendatzeko, baieztapen kausalak egin behar dituzte, eta horiek ezin dira ezagutu kausa-ondorioa segida-**erlazio** baten esperientzia ez baldin badugu. Askoren artean

Kolore-gama, eta gama horren kontraste-**erlazioak**. Josu Zabaleta

Gainerako gorputz-adarrek ere proportzio-**erlazioa** gordetzen dute, eta horretaz baliatu ziren pintore eta eskultore ospetsu guztiak. Santiago Iruretagoiena

Belarrietatik oratu zidan, gogor, eta horrelaxe hasi zen gure arteko sexu **erlazio** bitxia. Jon Arretxe

Gurasotasun eta filiazio-**erlazioan** garbi dago harremanetan dauden bi gizarteak garapen-fase oso desberdinetan, egia esateko kontrakoetan, daudela. Iñaki Mendiguren

"Arreba"-ren ideia ez dago inongo barne **erlazioren** bidez lotua ideia horri adierazle gisa balio dion a-rr-e-b-a hots sailarekin. Isabel Arrigain

Gertaera horiei dagokienez gauza jakina baita, Heisenberg-en ziurgabetasun-**erlazioez** geroztik, behatzaileak bertan egonez besterik gabe aldatzen dituela. Josu Zabaleta

Ekonomia **erlazio** tradizionalei loturikoa. Iñaki Heras

Nahitaezkoa da errealitateak, pentsamenduak eta hizkuntzak forma bera izatea, isomorfia **erlazioan** egotea. Askoren artean

Bi perpausek adierazten dute objektu batek bere buruarekin duen identitate-**erlazioa**. Askoren artean

Kausalitate-**erlazio** horiek duten zentzua aldaketari dagokio. Askoren artean

6 *erlaziozko*

Saussureren pentsamoldearen oinarrizko ideia batzuk, hala nola **erlaziozko** balioaren ideia, hizkuntza entitatearena, sistemaren ideia. Isabel Arrigain

Hegemoniaren artikulazio mugimenduetan jarrera bakoitzaren nortasuna aldatu egiten den bezala, antagonismoaren egitura kontrajarrian [...] nortasunaren izaera **erlaziozkoa** ahaztu egiten da. Joseba Zulaika

Nabariak ez diren ezaugarriak, beharbada **erlaziozkoak**, artelana entzutegi aktual edo posible batekin elkartzen dituena. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aipatu erlazio (3); **artean erlazio** (3); **arteko erlazio** (38); **arteko erlazioa** (71); **arteko erlazioa eta** (3); **arteko erlazioak** (34); **arteko erlazioan** (9); **arteko erlazioaren** (22); **arteko erlazioaren lerraketa** (3); **arteko erlazioari** (7); **arteko erlazioaz** (3); **arteko erlazioei** (6); **arteko erlazioek** (3); **arteko erlazioen** (4); **arteko erlazioetan** (3); **arteko erlazioez** (3); **batzuen arteko erlazio** (3); **beste erlazio** (3); **bien arteko erlazioa** (4); **da erlazio** (7); **den erlazio** (3); **denborazko erlazioak** (3); **diren erlazio** (3); **diren erlazioak** (7); **dituen erlazio** (3); **dituen erlazioa** (5); **dituen erlazioen** (3); **du erlazio** (3); **duen erlazio** (5); **duen erlazioa** (17); **duen erlazioan** (5); **duen erlazioaren** (5); **duen erlazioari** (4); **dugun erlazio** (3); **duten erlazioa** (3); **duten erlazioaren** (3); **edo erlazio** (6); **elkartze erlazioak** (4); **ere erlazio** (3); **erlazio bat** (19); **erlazio batean** (6); **erlazio berean** (4); **erlazio eta** (5); **erlazio guztiak** (5); **erlazio hauek** (3); **erlazio hori** (22); **erlazio horiek** (9); **erlazio horrek** (3); **erlazio hura** (4); **erlazio kausala** (8); **erlazio kausalak** (3); **erlazio sintagmatikoak** (3); **erlazio sistema** (5); **erlazioa da** (4); **erlazioa dela** (3); **erlazioa eta** (4); **erlazioa ez** (3); **erlazioa ulertzeko** (3); **erlazioak aztertzen** (3); **erlazioak aztertzen ditu** (3); **erlazioak eta** (9); **erlazioak eta proportzioak** (3); **erlazioak ez** (3); **erlazioaren arabera** (8); **erlazioaren lerraketa** (4); **erlazioaren lerraketa bat** (4); **erlazioari buruzko** (3); **erlazioei buruz** (3); **erlaziorik ez** (8); **erlaziorik izan** (4); **eta erlazio** (10); **eta gelditasun erlazioa** (4); **gauzen arteko erlazioei** (3); **gelditasun erlazioa** (4); **horien arteko erlazio** (3); **horien arteko erlazioak** (7); **indar erlazio** (5); **indar erlazioen** (3); **inolako erlaziorik** (5); **irudiarekin duen erlazioan** (3); **lotzen dituen erlazioa** (5); **proportziozko erlazio** (3); **zer erlazio** (5)

---

erlazional *izond* erlazioari dagokiona.

Horrelakoa litzateke espazioa bera ere gure gogamenarekiko zerbait independente legez ikusiko bagenu -objektu independenteen arteko erlazio legez (Leibnizen ikusmolde **erlazionala**) edo substantzia balitz bezala (Newton-en espazio absolutua). Askoren artean

---

erlazionatu, erlaziona, erlazionatzen **1** du *ad* erlazioa ezarri.

Belaunaldi bereko artista diren Amable Arias eta Eduardo Txillida **erlazionatzeko** ideia aspalditik zuen Galeria 16-ko arduradunak. Berria - Kultura

Gaitasunak eta aukerak **erlazionaturik** daude oso, eta baita libertateak ere. Iñaki Heras

Nola, hortaz, **erlazionatu** ezagutza eta apriorikoa den justifikazioa? Askoren artean

Lanabesak ezin baititu elkarren aldamenean ez dauden elementuak **erlazionatu**. Itziar Laka

Egungo idazleek ere anagrametara jotzen dute zenbaitetan, hitz pareak **erlazionatuz**. Iñaki Arranz

Beraien artean **erlazionatuta** edo antzekoak diren ekosistemek bioma bat osatzen dute. Berria - Gaiak

Frantsesaren aldi bat aztertzen dela (XIII. mendetik XX.ra), edo Javako hizkuntzarena edota beste edozein hizkuntzarena, guztietan antzeko gertaerekin egiten da lan, eta nahikoa litzateke gertaera horiek haien artean **erlazionatzea**, diakronia mailako egia orokorrak ezartzeko. Isabel Arrigain

Vitruvioren "symmetria", guk *proportzioa* itzuli duguna, etimologiaz kon-mensurazioa da, elkarren artean **erlazionatutako** neurri-multzo konplexua. Santiago Iruretagoiena

Elkar **erlazionaturiko** lau faktore nagusik gidatu izan dute globalizazio prozesua esparru ekonomikoan. Iñaki Heras

Era horretara **erlazionaturiko** hizkuntza multzoak hizkuntza familia bat osatzen du. Isabel Arrigain

Izan ere, noiz **erlazionatzen** gara Estatuarekin? Pasaportea eta NAN ateratzen, eta ezer gutxi gehiago. Berria - Euskal Herria

Garun primitiboa oso **erlazionaturik** zegoen usaimenarekin; ikusmena eta entzumena geroago garatuak dira. Irene Aldasoro

Arau guztiok fonemekin **erlazionatzen** dira, beren kopuru eta eduki idealarekin. Lourdes Oñederra

Maius zen Atlas eta Pleyoneren alaba, eta landareen hazkundearekin **erlazionatzen** dugu. Pello Salaburu

Itxura guztien arabera, argi-bizitasunarekin **erlazionaturik** dago begiaren sentikortasuna. Irene Aldasoro

Elektroiarekin **erlazionatutako** industria. Pello Salaburu

Artearen esperientziarekin **erlazionaturiko** pentsamenduak, hausnarketak eta portaerak. Askoren artean

Mundu kosmikoaren fisika eta haren mugimendu bitxi eta betierekoa astroak materiagabeko adimenekin **erlazionaturik** egotearen ondorio dira. Xabier Kintana

Harrisek perpausak perpausekin **erlazionatzeko** erabili zituen erregela formaldatzaileak; Chomskyk, ordea, egitura-maila abstraktuak elkarrekin **erlazionatzeko** erabiltzen ditu. Itziar Laka

Brennanek azpimarratu zuen, «kontrolak gero eta zorrotzagoak izan arren, minbizi kasuen %5 gutxienez lanarekin **erlazionatuta**» daudela. Berria - Ekonomia

Zailtasun horiez gain badira indukzioaren arazoan beste auzi batzuk zientziaren praktika justifikatzailearekin **erlazionatuagoak**. Askoren artean

Eskaria eta eskaintzaren legearekin **erlazionaturik**, ordea, bada are hedatuagoa eta sakonagoa den mito bat ekonomian. Iñaki Heras

2 (adizlagun eta kidekoen eskuinean)

Elkarrekin ongi **erlazionatzen** dira zati guztiak? Askoren artean

Arkitekturaren "hautemate" horren ideiarekin hertsiki **erlazionatuta**, *decor* kontzeptua ere azaltzen da. Santiago Iruretagoiena

Hala ere, mikroekonomia eta makroekonomia estuki **erlazionaturik** daude. Iñaki Heras

Eman dezagun gertaldiak direla kausalki **erlazionatzen** ditugun izakiak. Askoren artean

Aurreko horrekin oso zuzenean **erlazionatuta**, tratatuaren jatorrizko marrazkien arazoa dago. Santiago Iruretagoiena

3 (era burutua izen gisa)

Nozio komun propioen tematizazioak bere burua gidatzeko hartzen dituen irizpideak (erlazioaren) sarritasuna eta (**erlazionatuaren**) antzekotasuna dira. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erlazionaturik daude (5); **erlazionatuta dauden** (3); **erlazionatzen da** (3)

---

erlazionatzaile *izond* erlazionatzen duena.

hitz flexionatua, zehaztapen guztiak berarekin daramatzana, autonomoa da esaldian, eta horrenbestez, askatasun handia dago determinatzaileak edo **erlazionatzaileak** diren hitz gramatikalak (aditzaurrekoak, preposizioak eta abar) eratzean. Isabel Arrigain

---

erlazione ik **erlazio**.

---

erle **1** *iz* lau hegoko intsektua, gorputz iletsu eta arrekoa, taldean bizi dena, eztia eta argizaria egiten dituena.

Herbizida horiek kalte egiten diete inguruko lore, tximeleta, **erle** eta txoriei, besteak beste intsektuek elikatzeko erabiltzen dituzten zenbait belar eta hazi sortzea galarazten dutelako. Berria - Harian

Erleak erlauntzetara erretiratzeko orduan. Anjel Lertxundi

Haurrik gabeko etxea **erlerik** gabeko erlauntza da. Berria - Gaiak

Erleak erlasemea egiten duenean, erlauntza berri batera eramaten da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erleek erlekume bat osatzen dutenean, airean hegan ibiltzen dira luzaro harat eta honat; gero, adar bat aurkitzen dutenean, oso-osorik estaltzen dute. Fernando Rey

Erlamandoaren antzeko zara: ez du **erleen** lana bere gain hartzen, baina lehenengoa da eztia jaten. Askoren artean

Gogoratu zuen txikitan piku lodi-lodi bat ireki zuela behin eta, ahora sartzeko zegoenean, **erle** bat topatu zuela barruan, hilda. Unai Elorriaga

Erle bat, polenez bapo eginda baina artean ere gutziatsu, hirustaz hirusta zebilen jauzika, nire aurrean. Mirentxu Larrañaga

Esan zion **erle** guztien ama dela erlama. Unai Elorriaga

Erlea ez bezala, liztorra ez da galtzen, ez da hiltzen eztena barruraino sartuagatik ere. Josetxo Azkona

Erlea da munduko liderrik handiena beharbada. Unai Elorriaga

Erleari zuka hitz egin behar omen zaio. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erleak hil egiten dira, pertsonak bezala, gainerako animaliak galdu edo akabatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gero esan zidan berak, Dimasek, ez ziela abisurik eman **erleei**, aita hil zenean, horregatik hil zirela **erle** guztiak. Unai Elorriaga

Lokatzetan harrapatutako **erlea** bezala. Harkaitz Cano

-Hator -esan dit besotik tiraka-, **erleei** eztia kendu behar zienagu. Pako Aristi

Lorerik lore dabilen **erlearen** gisa aritu dira batzuk, batekin eta bestearekin dantzan. Xabier Mendiguren Elizegi

Erleen pozoiak, apitoxinak, hanturari aurre egiteko balio duela jakinarazi du Espainiako ikertzaile talde batek. Berria - Gaiak

Aldizkako durunda hotsa zen, milaka **erleren** burrunba totela bezalakoa. Mirentxu Larrañaga

Hurbildu naiz abaraska oparoenera, eta begira-begira gelditu naiz **erleen** atzera-aurrerei. Anjel Lertxundi

Egun hartan, Jaunak txistua jo eta euliak pilaka bezala etorrarazi ditu egiptoarrak Nilo ibaiaren azken bazterretatik, **erleak** samaldan bezala asiriarrak beren lurraldetik. Elizen arteko biblia

Bazkalosteko eguzki erreak itomenez erotu zituen **erleak**, eta lan zoroan hasi ziren, erlauntza barruan bezala, inguruan. Anjel Lertxundi

Zergatik ez ditek hiri **erleek** heltzen eta niri bai? Hasier Etxeberria

Erleek ez zuten sekula Damian Arruti ziztatzen. Hasier Etxeberria

Erle batek eztenkatu balu bezala. Joan Mari Irigoien

Erleek eraso egin zioten etxeko nagusiari, eta hil egin zuten. Anjel Lertxundi

Xifritua, buru guzia **erlez** betea bezala. Janbattitt Dirassar

Erleak eztia ta eztena. Iñaki Arranz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aitor diat erlauntza narratsean laster nagusitzen direla harrak eta zomorroak; eta gaixotzen dituk **erle** langileak ere, eta gaixotzen duk erregina. Anjel Lertxundi

Ernaltzen dute **erle** erregina (espiritua, edo pentsamendua, edo dena delakoa), eta hiltzen dira berehala. oihan batean non, tximistek joriko enborretan, **erle** basatiek egiten baitzuten habia. Anjel Lertxundi

Erle burrunbariak eta tximeletak arbi lore more eta zurien gainean hegan zebiltzan. Juan Kruz Igerabide

Zoaz zeure bidetik, anaia eulia, zeure anaien lana irentsi eta Jainko-lanetan alfer izan nahi baituzu, anaia erlamandoak bezala: ez du irabazi eta lan egin nahi, baina **erle** zintzoen lan eta irabazitik jaten du. Askoren artean

Abarasketan sakabanaturiko **erle** maratzen antza zuten funtzionario haiek. Jose Morales

Sanker atzera-aurrera zebilen, deiadar jario, **erle** lantsu baten gisara. Patxi Zubizarreta

Gaindegian aurkitzen zuen ia beti, irakurtzen edo **erle** bakartiren baten nahiz armiarmaren baten joan-etorriei begira. Josu Zabaleta

Erle gazteak. Unai Elorriaga

Zeren, ondorez, **erle** joan-nahiak bezala geratu beharko bainuen, ez ezti ez abaraska. Joan Mari Irigoien

Erle jaioberri horiek alde egiten dute erlauntzetik. Unai Elorriaga

Nire jakinmina **erle** ero bat baino burrundariago zebilenez, [...]. Anjel Lertxundi

Egun gutxi irauten du zabalik, **erle** bisitaren zain. Pello Zabala

Ohean lo gaudela, **erle** gautar batek eztia egiten du guretzat, bihotza urratzen diguten oteak eurak baliatuz. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**erla** g.er.)

Gauza bera gertatzen zaizu udaberri oro, **erle**-jelea hartu behar zenuke gosaltzeko. Anjel Lertxundi

Erle-hotsaren artetik, bada oihartzun bat, kexu itoa: erlemandoarena. Anjel Lertxundi

Behin talaian, bertatik ikusten zen paisaia gozatzen zuen, aitaren **erle**-hotsarekiko entzungor. Anjel Lertxundi

Ematen zuen disekatuta zegoela, **erle**-oskola baino ez zela. Unai Elorriaga

Bizitza zurrunbilo bat bilakatu da, pentsatzen zuen Goiok berekiko, **erle**-saldo baten burrunba itzalia baina etengabea, zoratzeko modukoa. Jon Alonso

Erle saldo puta batek ziztaka hil dezan errezatzen dut. Koro Navarro

Eta horra non, lehoiaren hezurren artean, **erle** multzo bat ikusi zuen, bere ezti eta guzti. Jose Antonio Mujika

Egun batean, hemezortzi **erle**-taldeak saldu genituen. Ander Irizar

Denok joan ginen berendiaren atzetik, **erle** mordo bat ginen. Koldo Izagirre

Erle-abaraskak eta inurri-koloniak eta hostoen ehun higikorra atomo-mordokatzeen mordokatzea begitandu zitzaizkion. Juan Garzia

Higuingarriena, tematze hutsaz erdiesten ahal ez dena, **erla** saskian baino larriago zaudela hauspoko azken hatsa erretzeko adore hori ukaitea da. Koldo Izagirre

Amodioa parte batez jabetasuna eta jendarte kiratsaren kontrako **erle**-kobain gerizatua zela. Itxaro Borda

Beste herri batetik ateratzean, **erle** kofoina nuen aitzinean, lastoz txapelatua. Piarres Aintziart

"Bertsuzaleen elkartea" zinezko bertsuaren **erle** kofoia bilakatua da. Herria

Erle-armada batek jaten dizu barrena; ondo antolaturik daude, eta lanean nekaezinak dira. Anjel Lertxundi

Zenbait egunez etxean zure tokia hartuko du eta enekin jinen da **erle** lanetara. Itxaro Borda

Erle Eguna iragan da aintzineko igandean Usurbilen. Herria

· Bizitza guztian **erle**-maitea izana, ba al dakizu hil eta lurperatzera zeramatela, zerraldoa erlez inguratuta joan zela, diotenez? Pako Aristi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Basa **erleen** latsaren ondoan sortu dudan herrixka honetan. Juan Garzia

Ezti-**erleei** gustatzen zaizkien gauzen perfumea dago. Anton Garikano

5 ***erle beltz*** erle mota kolore-iluna.

Erle beltza desagertzeko irriskutan da Europa guzian. Herria

Eginak izan diren erle mota desbedinen nahasketekin, **erle beltzaren** kopurua beheitituz doa. Herria

Euskal Herria omen da gune hoberena **erle beltzaren** geroa segurtatzeko, eta horri buruz behar diren neurrien eraikitzen ari dira euskal erlezainak. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da erle (3); **da erlea** (4); **den erlea** (3); **dira erleak** (13); **erle bat** (10); **erle eta** (8); **erle guztiak** (8); **erle kofoin** (5); **erle maiteak** (3); **erle saldo** (4); **erlea bezala** (3); **erleak eta** (9); **erleak ez** (5); **erleei eztia** (3); **erleek ez** (5); **erleen mundu** (6); **erleen mundu hori** (6); **erotzen dira erleak** (4); **eta erle** (9); **eta erlea** (3); **eta erleak** (5); **eta erleek** (3); **etxaniz erle** (10); **etxeko erle guztiak** (3); **nola erleak** (5); **zer den erlea** (3); **ziren erleak** (6); **ziren etxeko erle** (3)

---

erlebelar *iz* ezkaia.

Orduan paparreko poltsikotik hosto luzexka bat atera zenuen, zingira bazterretan usu ikusten den horietako bat, Leon Karrikak mila bider zapaldu ohi zuenetako bat, belar arrunt eta ezdeus bat: **Erlebelarra**. Hasier Etxeberria

---

erlegintza *iz* erlezaintza.

Hunek **erlegintza** hurbil-hurbiletik betidanik ikusi ahal izan du, aitona eta aita erlezain zituelako. Herria

Herstura horietarik iragana zen hura jadanik, Mikel hondarrean libre eta herrian **erlegintza** ogibideaz ohaturik zeukala, hein bat normalki. Itxaro Borda

Erakusketa berezi bat paratua izanen da aurten eztiaz eta **erlegintzaz**. Herria

Erakusketa berezi bat paratua izanen da aurten eztiaz eta **erlegintzaz**. Herria

---

erlejio ik **erlijio**.

---

erlekume *iz* erle taldea, eskuarki bere erreginarekin beste erlauntza bat osatzera doana.

Tomasi berrogeita bi aldiz kontatu ziola Dimasek **erlekumea** galdu zuela lehenengo eta erlategi osoa gero. Unai Elorriaga

---

erlemando ik **erlamando**.

---

erleontzi *iz* erlauntza.

Denbora asko baino lehen **erleontziak** jarri behar izan genitinan, erleek ez alde egiten eta. Pako Aristi

---

erletegi ik **erlategi**.

---

erletu da *ad*

Luis-Koldo eta Joxe Mari **erletzen** hasiak. Joxean Sagaztizabal

---

erletxo *iz adkor* erlea.

Erletxoak, **erletxoak**. Pello Salaburu

---

erletzar *iz adkor* erlea.

Larre-saguak korrika bizian nire ondotxotik, ziraunak, armiarma erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, **erletzarrak**, ezparak, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerrak, txirritak; eta ibiliko ziren, ikusi ez banituen ere, ziklopeak, lamiak, basiliskoak, herensugeak, banpiroak, otso-gizonak, anakondak eta krokodiloak. Joxean Sagaztizabal

---

erlezain *(**33** agerraldi, **6** liburu eta **14** artikulutan; ETCn **464** agerraldi) iz* erleak haziz bizibidea ateratzen duen pertsona.

Horra non, nire loaldi etenen zurrunbiloan, parkearen bazter batean dauden erlauntza batzuen ardura eman didaten: **erlezaina** naiz! Anjel Lertxundi

Erlezaina izan da gure familia. Unai Elorriaga

Bere etxean **erlezainez** jantzita agertzea bururatzen zait batzuetan. Koro Navarro

Herriko nekazariak, **erlezain** autonomoak, gozogile artisauak, onddo-biltzaileak, txalupako arrantzaleak... *traîteur* eskulangilearen ospea hartuko dute, diseinuzko elikagai bikainak ekarriko dizkigute-eta. Edorta Agirre

Biarnoan gaindi arras ezagunak dira Michaud familiako **erlezainak**. Herria

Erlezainen biltzar nagusia. Herria

Busturialdeko hainbat gizarte eragilek LAB, EHNE, GAI, Batasuna, Muxika Aurrera, Ekologia Tailerra, Zain Dezagun Urdaibai eta **Erlezainen** elkarteak Eusko Jaurlaritzako SPRILUR enpresa publikoak Muxikan (Bizkaia) egin nahi duen industrigunea kritikatu du. Berria - Euskal Herria

Kontuan izan behar da Gipuzkoan 43 elkarte daudela nekazaritza munduan, esaterako, baso elkarteak, **erlezain** elkarteak eta beste hainbat. Berria - Ekonomia

Zegaman, **erlezain** eguna da ospatuko asteburu huntan. Herria

---

erlezaingo *iz* erlezaintza.

Biltzar nagusi hau hasiko da 11 orenetan, gero bazkaria Txistulari ostatuan eta aratsaldean izanen da mintzaldi bat Espainiako **erlezaingoaz**. Herria

---

erlezaintza *iz* erleak hazteko eta zaintzeko lanbidea.

Heien ildoari jarraiki da bizi osoan, **erlezaintzaz** jakitate handia beretuz. Herria

Hizketan jarraitu zuen Matiasek eta esan zuen Dimas hirutan ikusi eta hiruretan hitz egin ziola erleez eta **erlezaintzaz**, eta bitan kontatu ziola nola galdu zuen erlekumea eta zergatik hil ziren etxeko erle guztiak. Unai Elorriaga

---

erliebatu, erlieba, erliegbatzen du *ad* nabarmendu, azpimarratu.

Nazioaren oinarri gisa orain jatorriaren batasuna, hizkuntza, ohiturak, usadioak, uste eta pentsamoldeen berdintasuna, aipatzen dira; ez du ahazten noski "proiektua" (garaiko eskuinetan topikoa izana); baina hizkuntzaren inportantzia **erliebatzen** da. Joxe Azurmendi

---

erliebe 1 *iz* azalera batean gertatzen diren garaieren arteko aldeak.

Eskua apur bat jaitsi zuen, kamixetaren gainetik betiere; klabikularen gainera iritsi zen; haren **erliebea** jarraitu zuen, presiorik egin gabe, eta gero bularreraino eraman zuen eskua. Xabier Mendiguren Elizegi

Haztamuka baina bide galtzerik gabe ibili omen zitzaion bular mardulen bolumena edo sabel ordekaren **erliebea** arakatzen. Ohe deseginaren **erliebea** aztertzea aski izango zuen Monika bakarrik edo norbaitekin lo egina zen jakiteko. Joxean Agirre

Inlandsisa, poloetako lurraldeetako glaziar erraldoia, kontinente edo lur-sail handian hedatzen dena eta **erliebea** osoki estaltzen duena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Perfekzioaren eta edertasunaren sinboloa da Michelangeloren David-a, baina ez da perfektua, akats anatomiko bat baitauka: bizkarreko gihar bati **erliebea** falta zaio. Berria - Kultura

Haizeak, meteoritoen kolpeek eta urak egindako bideek **erliebe** bitxia eman diote Marteko gainazalari. Berria - Gaiak

Xehetasun handiagoz ikusi ahal izan zituen gizon mehar haren hezurdurek, hanketakoek nahiz besoetakoek, osatzen zuten **erliebe** durduzarazlea, hezurrak eta narruazala ia giharrik gabe elkarrekin itsatsita. Josu Landa

Letrak zuriz zein beltzez idatziko ditugula, **erliebez** zein sakongrabatuez. Isabel Arrigain

Dozena bat leiho etxaurrean; baita hauetako baten azpian eskualdearen **erliebe**-mapa bitxia ere. Txillardegi

Botila baten deskonposaketaren egurrezko horma **erliebea**. Berria - Kultura

2 irud/hed

Mundu aspergarri lauari **erliebea** ematea bezala. Harkaitz Cano

Zeren maitasuna ederra da, denik ederrena, baina gaztetako gorrotoak emaiten zizkion ene maitasun hari **erliebea** eta bolumena. Joan Mari Irigoien

3 hondo lauari buruz gehiago edo gutxiago nabarmentzen den irudia.

Turista aleman talde oso bat hantxe zegoen multzoturik, apaiz katoliko bat gidari, denak ere elkarri ia bultzaka **erliebe** bati begira, istripu baten lekukoak bailiran. Joxe Austin Arrieta

Erliebeak egur polikromatuan eginak daude. Berria - Kultura

Ez genuen erretaularen pintura lehengoratu behar edo txapiteletako **erliebeak** garbitu edo halako ezer. Xabier Mendiguren Elizegi

Arrano Beltzaren irudia berreskuratu zuen Erdi Aroko dokumentuak kontsultatuz eta Iruñeko katedraleko Erdi Aroko bobeden **erliebeak** behatuz. Berria - Kultura

Zaila da elizaren balioan edo Donatelloren eskultura eta **erliebeetan** arreta jartzea, erlauntza erraldoi baten adinako hotsa baitabil. Anjel Lertxundi

Harrizko **erliebeen** gainean kalkatzeko papera zabaldu eta, haretxen gainean, orduak eta orduak pasa, klarion beltz batekin hura guztia harramazkatzen. Joxe Austin Arrieta

Beste batzuetan, ordena joniarrari jarraituz, frisoak **erliebeekin** apainduta azal ditzake, dentikulu eta erlaitzekin konbinatuta. Santiago Iruretagoiena

Irudiak sartu behar baldin badira, orduan arkitrabea baino laurden bat altuagoa izango da, **erliebeak** azal daitezen airoso. Santiago Iruretagoiena

Erosten diot tolatxo bat, eskuin aldean, **erliebe** sotil batean Santiago erromesaren itxura daukala. Ezkaratzeko horman egurrean egindako **erliebe** lan bati begira zegoen Dionisos. Piarres Aintziart

4 *erliebean*

Ikur sakratua zeukan **erliebean** marraztua. Koldo Biguri

Eszena gaineko pinturetan badirudi kolomak, modiloietako irtenguneak eta eskulturen irudiak **erliebean** daudela eginda. Santiago Iruretagoiena

Lurraldeak **erliebean** eta azken xehetasuneraino zeuden irudikaturik. Alberto Ladron Arana

Ostia izpidun baten marrazkia **erliebean** egina zuen argi eta garbi. Koldo Biguri

5 ***erliebezko*** *izlag* erliebean eginikoa.

Hernaniko karrika nagusia, dena **erliebezko** armarriek, bitxi-balkoiek, atari jaungoenekoek apaindua. Koldo Izagirre

Gogoratu beharra dago, tresneriaz oso bestelakoa bada ere, **erliebezko** zinemaren printzipioa horixe bera dela. Josu Zabaleta

Erliebezko mapa geologikoa. Monika Etxebarria

6 *baxu-erliebe* ik **baxuerliebe**.

7 *behe-erliebe* ik **behe 19**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erliebe eta (3); **erliebe mapa** (3)

---

erliebedun *izond* erliebea duena. ik **erliebetsu**.

Nire begiez ikusi nuen eskutitz hura; paper ofizialean zegoen idatzita, zigilua eta ur-marka zituen, eta orriaren goialdean, ezkerreko ertzean, letra **erliebedunez** hitzok ageri ziren: Estatu-idazkaria. Ander Irizar

Lagun horiek ez dute inolako lotsarik esateko izaki benetan zoragarria, **erliebeduna**, argi-ilunak dituena, eta oraindik deskubritzeke dagoena emakumea dela. Ana Urkiza

---

erliebetsu *izond* erliebea duena. ik **erliebedun**.

Izua bera baino harantzagoko hozkirri zorrotz batek jo zuen Nora, "Letra gorrimina, Nathaniel Hawthorne" irakurri baitzuen bertako letra **erliebetsuetan**. Anjel Lertxundi

Hatz-mamiez ferekatzen ari zen azaleko letra **erliebetsuak**, begiratu gabe ere bertako izenburua behin eta berriro irakurririk. Anjel Lertxundi

Begiak itxi, eta azaleko letra **erliebetsuak** ferekatu zituen gero hatz-puntez. Anjel Lertxundi

---

erligio ik **erlijio**.

---

erligione ik **erlijio**.

---

erlijino ik **erlijio**.

---

erlijio *(ETCn **26.621** agerraldi; orobat **erlejio** g.er., **erligio** g.er., **erligione** g.er., **erlejino** g.er., **erlijione** g.er., **erlisio** g.er., **erlisione** g.er., **erlixio** g.er., **errelijio** g.er. eta **errelijione** g.er.) iz* jainkotasunari buruzko sineste eta elizkizun multzoa; sineste eta elizkizun horiek gauzatzen duten sistema.

Erlijioak eremu intelektualetan izandako nagusitasun tradizionala halabehar historikoa izan da. Iñaki Mendiguren

Bizitzan **erlijioa** ezinbesteko oinarria da. Berria - Harian

Izan ere, **erlijioa** gizateriaren neurosi obsesiboa da. Markos Zapiain

Erlijioa, misterioaren atarirantz (hastapenera) begiratuz bizitzea da. Herria

Erlijioa giza arimek jainko-argia hartu ahal izateko existitzen da, eta ezingo luke helburu hori bete, Jainkoaren giza gurtzaileen aniztasuna zintzo islatuko ez balu. Iñaki Mendiguren

Beste batzuek Mahomak predikatutako **erlijioa** eta islameko dotrinak hartu zituzten jarraibide eta ardatz. Joan Mari Irigoien

Erlijioa da, 100 milioi fededun baino gehiago dituen **erlijioa**. Berria - Kirola

Erlijioa praktikatzen dudan edo ez galdetzen didatenean, hori nire arazo pertsonala dela esaten dut beti. Berria - Kultura

Erlijioen errespetua bermatzeko neurriak eskatuko. Berria - Mundua

Egutegiek **erlijioekin** duten lotura bitxia juliotar egutegiaren ondorengo historiak argitzen du. Iñaki Mendiguren

Zein arriskutsua den **erlijioak** izuikara eragitea gauza axolagabekoez. Iñaki Iñurrieta

Erlijioa aukera pertsonal bihurtzen hasten da honela. Iñaki Mendiguren

Erlijioek beren dogmak dituzte. Joxerra Garzia

Sinkretismoa **erlijioan**. Iñaki Mendiguren

Hori defendatzen dutenek astrologia zientzia bat eta **erlijio** bat dela sinesten dute. Berria - Gaiak

Filosofian askotan **erlijioaren** ekibalentea bilatzen da; eta filosofoarengan zuzendari izpiritualaren ordezkoa. Joxe Azurmendi

Erlijioaren Filosofiaren arloari dagozkion kontzeptu, termino eta metodologiak. Askoren artean

Hemen badago filosofiaren eta **erlijioaren** arteko muga gaindiezin bat. Askoren artean

Erlijioaren izaera ez dago gaiei loturik, pentsamendua egiteko erari, estiloari baizik. Askoren artean

Erlijioaren printzipioek eragin handi-handia izan dute giza espeziearen hedaduran. Iñaki Iñurrieta

Ezbairik gabe, handia da gure **erlijioaren** misterioa. Elizen arteko biblia

Taliban bizardunak ere indartu ziren Afganistanen, eta teologoak agintera eramanik, komunismoaren integrismoari **erlijioaren** integrismoak segitu zion. Pello Salaburu

Lukreziok **erlijioari** erasotzen dio, honek jainkoak ahalguztidun egiten dituelako, ez jakintsu edo probidente, indar gizagainekoz eta suprakosmikoz hornituak baizik. Xabier Amuriza

Ez dugu inor behartuko islama **erlijiotzat** hartzera. Berria - Mundua

Literatura sentimenduen **erlijioa** dela eta aldare horretan bizia emateko prest egon behar genuela esan zidan behin. Joxean Agirre

Espainiako hezkuntza sisteman Gizarte, Kultura eta **Erlijioa** ikasgaia arautzeko Errege Dekretuen kontrako helegitea aurkeztu zuen EILASek joan zen irailean. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erlijio kristauaren eta **erlijio** mahometarraren izaeraren ondorioak. Iñaki Iñurrieta

Erlijio protestantea ezarri zen herrialdeetan, iraultza politikoak egin ziren. Iñaki Iñurrieta

Nola lege zibilek batzuetan **erlijio** faltsuak zuzentzen dituzten. Iñaki Iñurrieta

Beren ondorengoak ez bezala, lehenengo zibilizazio haiek huts egin zuten **erlijio** nagusi erabat garatuak jaioarazten. Esklabo-mundu honetatik sortu ziren barne-proletalgoaren **erlijio** berriak, horien artean kristautasuna. Iñaki Mendiguren

Iraultzaren gozotasuna eta salbazioa predikatzen zituen, **erlijio** berria balitz bezala. Karlos Zabala

Erlijio garaile batek normalean lehiakideen ezaugarri nagusietako batzuk bereganatuz lortzen baitzuen garaipena. Iñaki Mendiguren

Aurrerantzean, ezinezkoa baitu ordena hausteko plazera, Sadek **erlijio** ezarriaren aldeko liburuak idatziko ditu, "aita Kardaberaz" ezizenez. Markos Zapiain

Armak eskuan, hartu Durangoko agintea, eratu estatu bat, eta ezarri bertan **erlijio** komunitario berria, sortu paradisu txiki bat Bizkaiko lurraren erdian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erromatar bakeak eskainitako aukera lehian zeuden zenbait **erlijio** proletariok hartu zuten. Iñaki Mendiguren

Egiazko **erlijioa** katolikoen Jaungoiko Bakar eta Hirukoitza gurtzea da. Imanol Unzurrunzaga

Eta benetan Jainkoaren emazte akasgabea da hark harturiko **erlijio** egiazkoa. Askoren artean

Erlijio positibo baten jarraitzaile guztientzat. Xabier Kintana

Erlijio esoteriko ergel samar batek mantendu zituen nolahala elkarturik. Mongolen Inperioak [...] **erlijio** lehiakide askotako misiolarien irudimena piztu zuen. Patziku Perurena

Erlijio mardul bilakaturik dauka fede arin hori. Hasier Etxeberria

Arrisku gutxiago duela inolako **erlijiorik** ez izateak, **erlijio** txarra izateak baino. Iñaki Iñurrieta

Mahometar **erlijioak** eta indiar **erlijioak** ezin konta ahala herri hartzen dituzte beren baitan. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskeko mojak edo "beatak" bigarren mailako **erlijio**-emakumeak ziren: ez zuten doterik behar, ez baitziren ohizko lekaime-etxeetara joaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Are beharrezkoagoa da geuk, **erlijio**-gizonok, bazter dezagun jende arruntarentzako gauza zailak argi adieraztea. Xabier Kintana

Gurasoen ordezkariek ziotenez, irakasle bakoitzak hartu behar zuen **erlijio** eskolak emateko ardura. txotxongiloaren inguruko nano saltariak eta **erlijio** zirkulu txikia ikusi zituen. Koro Navarro

Parisen, Muga Gabeko Erreportariak elkarteak eta musulman **erlijio** buruek exijitu zuten Carrollen aske jartzea. Berria - Mundua

Muktada al-Sadr **erlijio** buruzagi xiitaren jarraitzaileak. Berria - Mundua

Indioek **erlijio**-maisuei, guruei, begirune ez ezik, obedientzia handia ere erakusten diete. Gotzon Garate

Behin ere ez zen **erlijio** konturik izaten haien artean. Karlos Zabala

Egiazko zientziak bereganatu dituenarentzat ari naiz, eta **erlijio** gauzetan sinetsi arren, horiek inguratzen dituzten hitz eta alegoria ilunengatik, berorien esanguraz alderrai dabilenarentzat. Xabier Kintana

Freudek jarrera horixe bera ageri du **erlijio** dotrinen aurrean: ilusiotzat ditu, lehenbailehen baztertu beharrekoak, kultura garatuko bada. Markos Zapiain

Erlijio-bizitza hasi zuenetik hil zen arteraino, tunika bakarra, gerriko soka eta barruko galtzekin aberats, ez zuen besterik ezer eduki. Askoren artean

Ez ditugu beteko erregearen aginduak, ez eta aldatuko ere ezertan geure **erlijio**-ohiturak. Elizen arteko biblia

Lanorduetako % 10 gutxienez galtzen dutela hildakoen izenean egiten diren **erlijio** zerbitzuetara joaten. Pello Salaburu

Jesuita batek hala dio 1612-14 inguruan, Ipar Euskal Herri eta Biarno aldeko **erlijio** giroaz: **Erlijio** Zientzietan Masterra du. Patziku Perurena

Erlijio-gaietan ezjakintzat agertzen du bere burua. Askoren artean

1562: **Erlijio** gerlen hasiera Frantzian. Aingeru Epaltza

Erlijio-auzietan Amarias apaiz nagusia izanen duzue buru, eta auzi zibiletan Ixmaelen seme Zebadias, Judaren leinuaren burua. Elizen arteko biblia

Ezergatik ere ez dezagun inoiz **erlijio**-ipuinik nahastu heziketa nazional honetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Inongo zaintzarik gabeko gogoeta esan nahi da, konfesiorik gabekoa, **erlijio**-sistemetatik, Elizetatik, aske egongo dena. Askoren artean

Frantziskoren **erlijio**-elkartearen sorrera miragarria. Askoren artean

Emakume askok birjintasuna gordetzen zuen, beren etxeetan biziz eta **erlijio**-jantzia soinean eramanez. Askoren artean

Erlijio-sinboloz josita dago gizartea eta mundua. Askoren artean

Erlijio-fenomenoari lehentasuna ematea eta hura interpretatzeko filosofiaz baliatzea. Askoren artean

Euskal kulturan **erlijio** gogoeta falta da. Berria - Euskal Herria

Eskolastika Behereko eskola eta joeren arteko borrokan **erlijio**-sentimendua eta **erlijio**-esperientzia sentsibilitate- eta bizipen-ahalmena hainbat gehiago galtzen ari ziren. Joan Mari Lekuona

Giza enda batuak **erlijio**-batasunean aurkituko du salbazioa. Arrazialki judua kontsideratzen da, gutxienez aitona-amonetako bat **"erlijio** komunitate judukoa" duena. Iñaki Mendiguren

Erlijio-ordena baten baliokide sekularra. Islamak testigantza eman zuen, denboran zehar, Mahomak gizadiari ekarri zion **erlijio**-mezuaren balio espiritualaz. Iñaki Mendiguren

Beren **erlijio**-fedearen aitorpenean akasgabeak izateko argitasuna edota zori ona izan zutenean. Iñaki Mendiguren

Erlijio-tolerantzia eta jakin-min intelektualaren giro bikaina. Iñaki Mendiguren

Erlijio-fanatismo intolerantetik erlijiogabeko tolerantziara. Iñaki Mendiguren

Esandakoarekin aski da, nire ustez, **erlijio**-delituen kontra ez dela inolako legerik aldarrikatu behar frogatzeko. Bi gerra-talde hauek beren **erlijio**-heresia bereizgarriei heltzean beren gainera ekarri zuten patu gaiztoari ihes egiteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haiek babestuko dituen **erlijio**-legea oso komenigarria da, beraz, herrialde hartako aribiderako. Iñaki Iñurrieta

Ez egin gero zeuen **erlijio**-betebeharrak jendaurrean, jendeak ikus zaitzaten. Elizen arteko biblia

Erlijio kutsua izan zuen hurrengo piezak. Berria - Kultura

Bazirudien antzinako **erlijio**-praktikek, zeinen bidez jarraituko baitzuen erreklutatu berri apalen oste honek bere **erlijio**-premiak asetzeko bila, proletalgoaren ugazaba sofistikatuen bihotz hutsetarainoko bidea aurkituko zutela. Iñaki Mendiguren

Poloniarren **erlijio**-sua agertzen baitzuen alboko errusiar jainkobakoen ondoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jendea **erlijio**-gosez dagoenean, orduan jasan behar duten estutasun espiritual etsigarriak sutu egin ditzake, **erlijio**-kontsolamenduzko zainak etorkizunik gutxieneko meatik ateratzeko. Iñaki Mendiguren

Ekintza ona da oso inori norberaren dirua interesik gabe mailegatzea, baina bistan da hori **erlijio**-aholku bat besterik ezin daitekeela izan, ez lege zibila. Iñaki Iñurrieta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kristau-**erlijioak** desatxikimendua -gozatzea argi eta garbi bere eskumenean zeukalarik- bere borondatez abandonatu zuen Jainko bat aldarrikatzen du. Makabearrak asaldatu aurreko garaietan, juduzale izana eta judu-**erlijioaren** alde etengabe eta gogotsu borrokatua zen. Iñaki Mendiguren

Inperioa eta seleukotarren monarkia- antzeratsu erabili zituen judaismoak eta honen senide-**erlijio** zen zoroastrismoak. Iñaki Mendiguren

5 (hiru osagaiko elkarketan)

Poloniako agintariek, beste hainbat herritan ez bezala, mende askoz mantendu zuten **erlijio**-askatasun giroa, eta juduek lasai eta eroso jarraitu zuten bertan. J.M. Olaizola "Txiliku"

6 ***erlijiozko*** *izlag*

Erlijiozko "zerbitzu publiko" honek (leitourgia, liturgia) izenez borondatezkoak ziren gastuetatik hartu zuen izena. Iñaki Mendiguren

Einsteinen arabera, lan zientifiko on ororen oinarrian **erlijiozko** sentimendu bat dago, "arrazoiaren usteekin" hertsiki lotua. Iñaki Segurola

Heldu nion adatsari geldiro, ia **erlijiozko** begirunez, eta ezkutalekutik kanpora atera nuen. Josu Zabaleta

Esanahi eta erabilera sekularretik **erlijiozkora** izandako hitz-transferentziak emandako froga ahul baina esanguratsuak. Iñaki Mendiguren

Gauza **erlijiozkoetan** nola profanoetan egin dituzuen ekintzen kontaketak dioenaz fio gara. Jon Alonso

Sinbolismoak ez dira **erlijiozkoak** bakarrik, eta, Mendebaldeko gizarteak laikotu eta gero ere, irudien funtzio sinbolikoak aise iraun du bizirik. Josu Zabaleta

Herri bakoitzak dauka **erlijiozko** bere egia partikularra. Joxe Azurmendi

Irlandan, zeltar kultura **erlijiozkoan**, han zituzten zuhaitz sakratu handienetan bost, santutegietako zuhaitz lerdenak, lizarrak ziren. Pello Zabala

Zentzu iniziatikoa eta **erlijiozkoa** baitzuen pikoak, eta horregatik omen ziren eremitak piko zale. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina erlijio (6); **baita erlijio** (4); **bat erlijio** (4); **bere erlijio** (6); **beren erlijio** (10); **beste erlijio** (26); **beste erlijio bat** (4); **beste erlijio nagusi** (4); **bi erlijio** (8); **da erlijio** (14); **dago erlijio** (4); **dela erlijio** (4); **den erlijio** (4); **diren erlijio** (6); **dituen erlijio** (5); **du erlijio** (9); **duen erlijio** (4); **dute erlijio** (5); **edo erlijio** (12); **erlijio aniztasuna** (4); **erlijio askatasuna** (6); **erlijio bakoitzak** (4); **erlijio bat** (25); **erlijio batek** (11); **erlijio baten** (17); **erlijio berri** (9); **erlijio berria** (7); **erlijio bizitza** (6); **erlijio buruzagi** (4); **erlijio edo** (13); **erlijio egiazkoa** (4); **erlijio eskolak** (4); **erlijio eta** (34); **erlijio gaietan** (4); **erlijio gisa** (4); **erlijio guztiak** (12); **erlijio guztiek** (4); **erlijio guztien** (5); **erlijio guztietan** (5); **erlijio hori** (7); **erlijio horien** (5); **erlijio horrek** (4); **erlijio horren** (5); **erlijio ikur** (5); **erlijio ikurrak** (9); **erlijio ikurren** (4); **erlijio katolikoa** (6); **erlijio kontu** (4); **erlijio kontuetan** (6); **erlijio kristaua** (9); **erlijio kristauak** (7); **erlijio kristauaren** (6); **erlijio kristauari** (6); **erlijio nagusi** (50); **erlijio nagusi bat** (8); **erlijio nagusi baten** (6); **erlijio nagusi bizien** (4); **erlijio nagusia** (5); **erlijio nagusiak** (22); **erlijio nagusiek** (11); **erlijio nagusien** (28); **erlijio ofiziala** (5); **eta beste erlijio** (4); **eta erlijio** (81); **ez erlijio** (6); **gure erlijio** (7); **hainbat erlijio** (4); **hemen erlijio** (4); **igandeko erlijio** (7); **islama erlijio** (4); **lau erlijio** (5); **lau erlijio nagusi** (4); **mendebaldeko erlijio** (4); **munduko erlijio** (4); **zen erlijio** (14); **zenbait erlijio** (4); **ziren erlijio** (5); **zuen erlijio** (11); **zuten erlijio** (6)

baina erlijioaren (4); **bere erlijioa** (5); **bere erlijioan** (4); **beren erlijioa** (5); **beren erlijioaren** (8); **beren erlijioari** (4); **beste erlijioak** (5); **beste erlijioetako** (4); **da erlijioa** (8); **da erlijioaren** (9); **du erlijioa** (4); **du erlijioak** (4); **du erlijioaren** (5); **duen erlijioa** (4); **duen erlijioaren** (4); **edo erlijioa** (5); **edo erlijioaren** (5); **egiazko erlijioa** (5); **ere erlijioaren** (5); **erlijioa bera** (5); **erlijioa bere** (5); **erlijioa da** (15); **erlijioa dela** (5); **erlijioa edo** (5); **erlijioa ere** (4); **erlijioa eta** (36); **erlijioa ez** (9); **erlijioa ezin** (4); **erlijioa ikasgaia** (7); **erlijioa izan** (4); **erlijioa zela** (4); **erlijioa zen** (4); **erlijioa ziren** (4); **erlijioak berak** (7); **erlijioak ere** (6); **erlijioak eta** (18); **erlijioak ez** (13); **erlijioan eta** (6); **erlijioarekin lotutako** (5); **erlijioarekin zerikusia** (4); **erlijioaren alde** (4); **erlijioaren aurkako** (9); **erlijioaren eremuan** (4); **erlijioaren eta** (19); **erlijioaren filosofia** (34); **erlijioaren filosofiak** (9); **erlijioaren filosofiaren** (12); **erlijioaren filosofiari** (5); **erlijioaren indarra** (4); **erlijioaren inguruko** (6); **erlijioaren kontra** (6); **erlijioaren legeak** (6); **erlijioari buruz** (6); **erlijioari buruzko** (11); **erlijioen arteko** (14); **erlijioen historia** (5); **erlijioren jarraitzailea** (4); **erlijiorik ez** (6); **erlijiorik gabe** (5); **eta erlijioa** (48); **eta erlijioa ziren** (4); **eta erlijioak** (22); **eta erlijioan** (8); **eta erlijioarekin** (4); **eta erlijioaren** (42); **eta erlijioaren aurkako** (5); **eta erlijioari** (7); **eta erlijioen** (11); **gure erlijioaren** (8); **kristau erlijioak** (5); **kristau erlijioaren** (6); **zen erlijioaren** (4); **zuen erlijioa** (8)

baina erlijiozko (4); **eta erlijionea** (4); **eta erlijiozko** (6)

---

erlijioarteko *izlag* erlijioen artekoa.

Norberto Rivera Carrera Mexikoko **Erlijioarteko** Batzordeko zuzendariak azaldu duenez, New Age delakoak erlijioarekin lotuta dauden hainbat gai jorratzen ditu: Jainkoa, munduaren sorrera, bizia eta heriotza, besteak beste; baina ez da erlijioa. Berria - Gaiak

---

erlijioburu **1** *iz* erlijio baten burua.

Pertsiako erregea **erlijioburua** da; baina Koranak arautu egiten du erlijioa; Txinako enperadorea apaizburu gorena da. Iñaki Iñurrieta

Manifestazio hau Ulema **erlijioburuen** batzordeak deituta zegoen. Berria - Mundua

Herrialde musulman andana bateko **erlijioburuek** fatua agindu bat plazaratu dute, Irak okupatzen duten indar atzerritarren aurka gogor egitea erlijio betekizun bat dela aldarrikatuz. Berria - Mundua

Erlijioburu eta agintari politiko musulman andanak bahitzaileei eskatu die bi kazetariak aske uzteko. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Muktada al-Sadr **erlijioburu** erradikalaren jarraitzaile matxinatuek. Berria - Mundua

Xiiten **erlijioburu** gorenarekin izan zuen hizketaldiaren aurretik, Ameriketako Estatu Batuetako Estatu eta Defentsa idazkari Condoleezza Rice eta Donald Rumsfeldekin bilera izan zuen Al Malikik. Berria - Harian

Talde akademikoekin eta **erlijioburu** musulmanekin bildu ginen, laguntza eta aholkua eskatzeko. Berria - Mundua

Erlijioburu xiitek bide baketsutik amaitu nahi dute okupazioa. Berria - Mundua

Mila **erlijioburu** sunitek lege izaera duen dekretu bat kaleratu dute aste honetan boza ematea betebehar bat dela esanez. Berria - Harian

---

erlijiodun *(orobat **erlisiodun**) iz* erlijioa duena.

Berdin etortzen ziren **erlijiodun** zein erlijiogabeak. Felipe Juaristi

Xihitekin dira **erlisiodunak**, Islamaren alderdia daukatenak. Herria

---

erlijiogabe *iz* erlijiorik ez duena.

Legea ez dela ezarri zintzoentzat, beste hauentzat baizik: gaizto, errebelde, **erlijiogabe** eta bekatarientzat, sakrilego eta profanatzaileentzat, aitamen hiltzaile eta giza hiltzaileentzat. Elizen arteko biblia

Berdin etortzen ziren erlijiodun zein **erlijiogabeak**. Felipe Juaristi

Judu erlijioari uko egin zioten, baiki, **erlijiogabeak** bihurtuz. Felipe Juaristi

Zintzoki bizitzearen arau aldaezinak **erlijiogabeek** ere ezagutzen dituzte. Imanol Unzurrunzaga

Erlijiozko fedea, egia izatez gainera, baliagarria da katoliko batentzat; **erlijiogabe** batentzat izan daiteke gezurrezkoa eta baliagarria, eta beste **erlijiogabe** batentzat gezurrezkoa eta baliogabea. Josu Zabaleta

Ez bedi izan zuen artean lizunik nahiz **erlijiogaberik**, Esau bezala; janari batengatik saldu baitzuen hark bere lehen-semetza. Elizen arteko biblia

---

erlijiogabekeria *iz* erlijiogabetasuna, gaitzesgarritzat markatua.

Nolanahi izanda ere, batzuk, hori kontuan hartuta, euren **erlijiogabekeriatik** bide zuzenera etorriko dira. Imanol Unzurrunzaga

---

erlijiogabetasun *iz* erlijiogabearen nolakotasuna.

Urtero, lau hilabetez, sesio oro eten egiten zen tribu arabiarren artean; iskanbilarik txikiena ere **erlijiogabetasuntzat** hartzen zen. Iñaki Iñurrieta

---

erlijiogabezia *iz* erlijiorik eza.

Izan ere, Jaungoikoa justua ez dela erantzuten badidazu, zeuk jakingo duzu zertan zabiltzan, arestian nire **erlijiogabezia** aurpegiratzen baitzenidan. Imanol Unzurrunzaga

---

erlijiogintza *iz* erlijioa zertzea.

Cultus religionis, kultua, gurtu/gurtza, **erlijiogintza**. Askoren artean

erlijiogune *iz* erlijio baten praktikaren gunea.

VII. mende bukaeran bilakatu zen Olinpia **erlijiogune** sakratua. Berria - Kirola

erlijiokera *iz* erlijio modua.

Ordura arte bizi izandako nire **erlijiokera**, esan dut lehenago ere, errito eta ohitura mailakoa zen, eta nahiko utzia eta atzendua nuen 14 urteak bete nituenetik. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure artean, Mirandek baino dexente lehen, kontrajarpen hori erabili duen bat, J.M. Salaverria izan da, **erlijiokera** ekialdetar eta mendebaldarraren diferentzia Inazio Loiolakoari aplikatzeko. Patziku Perurena

erlijiokeria *iz* erlijiotasun gaitzeesgarria.

Euskal gogoan, inon sartu beharko banitu, Marginalia ilun batean sartuko nituzke atzizki horiek; batez ere, garai bateko **erlijiokeria** guzien aitzaki izan zeneko "patrie de bascos" hartatik Bidasoaz honantz nabarmendutakoen estigmatzat edo. Patziku Perurena

erlijiokide *iz* erlijio bereko pertsona.

Bere burua errege izendatu zuen bere hirurogeita hamar **erlijiokideak** asasinatu ondoren, Jothan izan ezik, hura Tebas-ko dorrea setiatzen ari zela hil baitzen. Lopez de Arana

Nafarroa Behereko erreformatu bakarrenetarik zen Suhuskune, Enekot Ezpondaren lagun eta **erlijiokide**. Aingeru Epaltza

Jainkoak (gorets bedi!) badaki beldur handiaz egon naizela Tratatu honetan sartu nahi nituen gauzak izkribuz jartzean, horiek gauza ezkutuak baitira, gure **erlijiokideek** gatibutasunezko aldi honetan behin ere liburu batean ezarri ez dituztenak. Xabier Kintana

Politika honen gakoa zera zen, berak konbertitu nahi zituen gizarte ez-kristauen bidetik behaztopa-harri bat kentzean, beste bat jartzen ari zela bere **erlijiokideen** aurrean. Iñaki Mendiguren

Egia izanen da, nik dakidala, jazarpen garai latz hauetan buruko ile bat ere ez baitiete ukitu hango **Erlijiokideei**. Aingeru Epaltza

Egoera honetan juduek azkenean azpilana egin zuten Ipar Afrikako **erlijiokideekin**, arabiar musulmanen esku-hartzea lortzeko. Iñaki Mendiguren

erlijiomania *iz* erlijiozaletasun muturrekoa.

Dipsomaniaren erabateko erremedio bakarra -esan zuen noizbait William Jamesek- **erlijiomania** da Xabier Olarra

erlijione ik **erlijio**.

erlijiosa *iz* erlijio ordena batean profesa egin duen emakumea. ik **erlijioso**.

Jainko Jauna Eliza santu katoliko eta apostolikoaren baitan zerbitzatu nahi duten guztiei, maila guztietakoei: apaiz, diakono, subdiakono, akolito, exortzista, irakurle, atezain eta kleriko guztiei, erlijioso eta **erlijiosa** guztiei, [...]. Askoren artean

Begira-begira zeuden **erlijiosak**, baina ikusiz aita dohatsuak han jarraitzen zuela hautsezko zirkuluaren barruan isilik, barru-barruraino hartu zituen harridurak. Askoren artean

Edozein dela giza izaera, sexua, maila; nahiz apaiz, erlijioso-**erlijiosa** izan, eta berdin sekularra izanik ere. Joan Mari Lekuona

Horrela jokatzen dute zenbait erlijioso-**erlijiosek**, hauek, hala ere, uste dutelarik onenak direla Jainkoaren aurrean. Joan Mari Lekuona

erlijiositate *iz* erlijiozaletasuna.

Beharbada garaiko giro eta planteamolde esentzialisten propioa da **"erlijiositate"** orokor hori (fundamentalismoa esango litzateke orain), librepentsamenduan eta laizismoan bertan ere nabarigarria XIX. mendean. Joxe Azurmendi

erlijioso *(orobat **erlisios** g.er., eta **erlisioso** g.er.)* **1** *izond* erlijioari dagokiona, erlijiozkoa. ik **erlijio 3**.

Idazkiren bat, **erlijiosoa** edo arrunta, inon aurkitzen zuenean [...], bildu egiten zuen begirune handiz eta leku santuan edo egokian ipintzen. Askoren artean

Indartsua zen emakumeen presentzia Frantziskoren garaiko gizartean eta bizitza **erlijiosoan**. Askoren artean

Etsenplu onen bidez beren profesio **erlijiosoa** usain gozoko bihurtzen dutenak. Askoren artean

Eukaristia [...]: teofagoen sekta **erlijiosoaren** ospakizun sakratua. Xabier Olarra

Eskuineko Alderdi **Erlijioso** Nazionalak eta Batasun Nazionalak oposizioaren mozioen alde ez bozkatzeko agindu zieten beren ordezkariei. Berria - Mundua

Ikusten zuen jendeak mundu zaharra bizioen zikinez estalia zegoela eta Ordena **erlijiosoek** Apostoluen oinatzekiko sentiberatasuna galdua zutela. Askoren artean

Talde **erlijioso** islamikoei laguntza ematea proposatu dute. Berria - Harian

Zenobita komunitate **erlijiosoetako** komentukidea da. Xabier Olarra

Disidenteak, alderdi demokratikoetako kideak eta gutxiengo **erlijiosoetako** kideak zigortu egiten dituela Gobernuak salatu zuen atzo NBEko ordezkari Manfred Nowakek. Berria - Mundua

Beti ikasi nuen ikastetxe **erlijiosoetan**. Xabier Mendiguren Elizegi

Erakunde **erlijioso** guztien historiografian gertatu ohi den bezala, San Frantzisko eta beronen idazkiak ingurune historikotik kanpo eta guztiz orijinalak balira bezala aztertu izan dira mendeetan zehar. Askoren artean

Zibilizazio Helenikoak, horrelako krisalida **erlijiosorik** ez zuenez, gero eta erlijio-gose handiagoa zuen. Iñaki Mendiguren

Botere **erlijioso** eta zibilen eskuetan. Joan Mari Irigoien

Eredu ideologiko, **erlijioso** edo kulturalen eraginak itsututa. Luis Elberdin

Lehen mailako eskola judu **erlijiosoa**, hiru urtetik aurrerako mutikoei hebreeraren, Torah-ren eta judutasunaren oinarriak irakasten zitzaiena. Koro Navarro

Paradoxa **erlijiosoak** harturik dagoen gizonaren hilketa ez da krimen arrunta. Joseba Zulaika

Inspirazio **erlijiosoko** egitaraua eskainiko du Peñaflorida kaperak. Berria - Kultura

Barkamena esperientzia **erlijiosoarekin** lotzera ohituak gaude. Joseba Zulaika

Erasmok pentsamendu laikoan, Kopernikok zientifikoan eta Luterok **erlijiosoan** eragindako triskantzak konpondu nahi ditu Axularrek. Anjel Lertxundi

Dostoievskik mistizismo **erlijioso** sukartsu baten aldarean eman zituen azkeneko urteak. Anjel Lertxundi

Gerra eta biolentzia **erlijiosoak**. Joxe Azurmendi

Zertaz hitz egin behar du anaia txikiak emakume batekin -esaten zuen-, hark modu **erlijiosoan** penitentzia santua edo bizitza hobetzeko aholkua eskatzen dionean ez bada? Askoren artean

Jainkoaren gizonari debozioz jarraitu zion lehena, izaera **erlijioso** eta xaloko Asisko gizon bat izan zen. Askoren artean

Hartmannentzat, ordea, batzuk besteekin elkartezinak dira balio **erlijiosoak** eta balio moralak. Joxe Azurmendi

Biolentziaren aurka arrazoi etiko edo **erlijiosoengatik** egotea -"printzipioz" alegia-. Joxe Azurmendi

Anai Nikolas, Aita santu jaunaren herritarra, gizon santu eta **erlijiosoa**, Kuria utzi eta haietara bildu zen. Askoren artean

Buruzagi **erlijioso** nagusiek elkarrekin otoitz egiteko deia egin zieten irakiarrei. Berria - Harian

200 aditu eta buru **erlijiosoren** konferentzia. Berria - Mundua

Kardinal batek agindua zion eta pertsona **erlijiosoek** aholkatua isolamendu hura hauts zezala. Askoren artean

Hau da benetan gizon **erlijioso** eta santu hura; honen bidez altxatuko da Jainkoaren Eliza eta zutik iraungo. Askoren artean

Praxedes emakume **erlijioso** ospetsuenetakoa zen Erroman eta Erroma inguru guztietan. Askoren artean

Presio **erlijioso** eta ideologikoen ondorioz ukatzen dute politikariek begi bistakoa dena. Berria - Gaiak

Druidek beren errito **erlijiosoak** basoetan egiten zituzten. Xabier Olarra

Ez genituela ez arau **erlijiosoak**, ez politikoak, ez moralak errespetatzen. Joseba Sarrionandia

Horren ondorio baino ez badira batzuen eta besteen erreakzioak, burua galtzerainokoak, baita jarraitzaileen erritu ia **erlijiosoak** ere. Joan Mari Irigoien

Auzoko nire lagunen familietako giroa ez zen batere gauza hauen aldekoa, gehienak praktika **erlijiosoa** bazter utziak baitziren, ateoak, agnostikoak edo indiferenteak. Joan Mari Irigoien

Debozio handiz abitu **erlijiosoa** eman zion, hau da, tunika eta soka. Askoren artean

Lehenengo galderari metafisikak erantzun behar dio, bigarrenaz morala arduratzen da, hirugarrenean kezka **erlijiosoa** ageri da. Askoren artean

Beste askok bezala, azidoa hartzeari utzi, eta, drogak ematen zion goi-punttua lortzeko, sukar **erlijiosoa** erabiltzen hasi zen. Xabier Olarra

Liburua ez da ulertuko, ez bada ikuspegi **erlijiosoaz** irakurtzen eta esperientzia **erlijiosoaren** eremuan kokatzen. Patxi Altuna

Paradisua ikusten du Oteizak harrespilen espazio **erlijiosoan**. Anjel Lertxundi

Balioen krisia edo balioen errebindikazioa, diskurtso filosofikoan edo **erlijiosoan** baino gehiago, politikoan ikusten da gaur. Joxe Azurmendi

Demokraziak gizartean indiferentzia espazioak maite ditu: indiferentzia ideologikoa edo neutraltasun **erlijiosoa** bereziki. Joxe Azurmendi

Estatu-Nazioa **erlijiosoa** da errotik, sakraltasunaren erritu, bandera eta liturgia guztiekin; eta fedea eta debozioa exijitzen ditu. Joxe Azurmendi

Israeldarren artean botere politikoa eta **erlijiosoa** erabat loturik ageri dira. Patziku Perurena

Bere lan berria aipatzen zuenean, halako hitz arraro batzuez, ia **erlijiosoez**, deskribatzen zuen. Oskar Arana

Cromwelen familia oso erlijiozalea zen; oso **erlijiosoa**, baina Ingalaterrako elizaren defendatzaile sutsua, eta katolikoak bihotzaren gihar guztiekin gorrotatzen zituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (hitz elkartuetan)

Idazkia, zalantzarik gabe, Santa Klararen **erlijioso**-bizitzako lehen urteetakoa da. Askoren artean

3 (izenondo elkartuetan)

Tradizio **erlijioso**-kulturalaren zama. Koldo Izagirre

Insistentzia horren arrazoia Frantziskoren garaiko testuinguru **erlijioso**-sozialean dago zalantzarik gabe, eta hori da Frantziskoren mugimenduaren ezaugarri nabarmenetako bat. Askoren artean

Espainiaren salbazio **erlijioso**-moralaren mitologia. Joxe Azurmendi

Gerra napoleonikoen ondoren lehia hau -eta izpiritu espainol jatorraren arazoa- biziki minberaz gain, katramila politiko-**erlijioso**-literario arras konplikatua bihurtu da: ideia liberalak, frantsesak ote? Joxe Azurmendi

Geure antzinako euskal txilbor mitiko aratz parerik gabekoari mirespen **erlijioso**-folklorikoz begira beti. Juan Luis Zabala

Sinbolo nazional **erlijioso**-morala. Joxe Azurmendi

Einsteini berari ere ez zitzaion oso arrotza egiten hinduismoaren ikuspegi kosmiko-**erlijiosoa**. Fernando Morillo

Arrazoi politikoak aipatu dira, arrazoi soziologikoak, arrazoi etiko-**erlijiosoak**. Karlos Linazasoro

Santuaren erlikia buruan joango zen prozesio zibiko-**erlijioso** bat egiteko erabakia ere hartu zuten. Askoren artean

• **4** *iz* erlijio ordena batean profesa egin duen gizona. ik**erlijiosa; fraide; lekaide**.

Kristau guztiei: **erlijioso**, kleriko eta laiko, gizon eta emakume. Askoren artean

Jainko Jauna Eliza santu katoliko eta apostolikoaren baitan zerbitzatu nahi duten guztiei, maila guztietakoei: apaiz, diakono, subdiakono, akolito, exortzista, irakurle, atezain eta kleriko guztiei, **erlijioso** eta erlijiosa guztiei, donadu eta postulante guztiei. Askoren artean

Berak ezetz erantzuten zidan, abertzaleek ez zutela hiltzen; alderantziz, bizitza asko salbatutakoak zirela, batez ere gorriek garbitu nahi zituzten apaiz eta **erlijiosoenak**. Ramon Saizarbitoria

Orduan ailegatu ziren mundua zabaltzen ari ziren deskubritzaileak, eta **erlijiosoak**, eta zientzialariak, eta militarrak, eta kolonoak. Joseba Sarrionandia

Edonon eta edozein **erlijioso** nahiz sekularren aurrean zelarik, bere barrena harrokeria, handiuste edo beste grina txar batera tentatua sentitzen zuenean, berehala argi eta garbi aitortzen zuen haien aurrean. Askoren artean

Ez dugu sekula **erlijiosorik** honela jantzita ikusi. Askoren artean

Eta zer obedientzia mespretxatzen duen **erlijiosoa** baino etsigarriagorik? Askoren artean

Erlijiosoak santutasun-ispilu ziren. Askoren artean

Garai hartan, **erlijiosoek** ez zuten EAJn afiliatzerik. Berria - Euskal Herria

Zorionekoa Jaunaren hitz eta egintza guztiz santuak bere zorion eta poz bakar dituen **erlijiosoa**. Joan Mari Lekuona

Nik ere **erlijiosoen** ikastetxe batean ikasi nuen. Joan Mari Irigoien

• **5** (izenondo eta izenlagunekin) *iz*

Txinako Gobernuak bost **erlijioso** tibetar espetxeratu ditu, Olinpiar Jokoen antolakuntza kritikatzeagatik. Berria - Kirola

Nobizio hura bere erabaki zintzoan sendotua geratu zen eta, Ordenan iraunez, **erlijioso** santu izatera iritsi zen. Maitasun berezia zien hegatxabal txoriei, **erlijioso** zintzoa irudikatzen zutelako. Askoren artean

Gizon hura, bere xalotasun eta bihotz garbiagatik, **erlijioso** ona izango zela iruditzen zitzaiolako. Askoren artean

Haur hori, aurrerago, Jainkoaren grazian eta San Frantziskorenganako debozioan gero eta gehiago hazten joan zen, eta Ordenan **erlijioso** ospetsu izatera iritsi zen. Askoren artean

Marshallen arabera, ordea, «ezinezkoa da» **erlijioso** homosexualak zeintzuk diren jakitea, hala izanda ere «ez baitute onartuko». Berria - Gaiak

Jakin zuen horren berri lehen hizpide izan dugun **erlijioso** jakintsu hark, behinola Frantziskorekin Idazki Santuaz jardun zuenak, alegia. Askoren artean

Irakiar **erlijiosoen** ordezkari batzuk mendietara joan ziren gure jeneralarekin biltzera, opari batekin: urrezko koran bat, Saddam Hussein-en agenteek TNTz betea, **erlijiosoek** ezer jakin gabe. Juan Kruz Igerabide

6 (hitz elkartuetan lehen osagarri gisa)

Gizon hauek, **erlijioso**-abitua hartu zutenean, ez ziren giza izaera berriaz jantzi, baizik giza izaera zaharra estali besterik ez zuten egin. Askoren artean

Aukeratu duzuen **erlijioso**-bizitza oso goikoa da, gizakiaren eta bere ahalmenen gainetik dago, eta antzinakoen santutasuna distira handiagoz edertzen du. Askoren artean

Anaia batek bi alaba zituen monasterioan, **erlijioso**-biziera bikaina zeramatenak. Askoren artean

Eta handik aurrera, ez zaio zilegi izango beste **erlijioso** -elkarte batera igarotzea, ezta obedientziatik kanpo hara-hona ibiltzea ere. Askoren artean

· Edozein dela giza izaera, sexua, maila; nahiz apaiz, **erlijioso** -erlijiosa izan, eta berdin sekularra izanik ere. Joan Mari Lekuona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintari erlijioso (6); **al sadr erlijioso** (3); **alderdi erlijioso** (15); **alderdi erlijioso nazionalak** (6); **alderdi erlijioso nazionaleko** (4); **beste erlijioso** (3); **bi buruzagi erlijioso** (3); **buru erlijioso** (3); **buruzagi erlijioso** (51); **buruzagi erlijioso musulman** (3); **buruzagi erlijioso nagusiek** (3); **buruzagi erlijioso sunita** (6); **buruzagi erlijioso xiita** (3); **buruzagi erlijioso xiitak** (5); **buruzagi erlijioso xiitaren** (7); **erakunde erlijioso** (6); **erlijioso bat** (12); **erlijioso batean** (4); **erlijioso batek** (9); **erlijioso bateko** (4); **erlijioso baten** (3); **erlijioso bizitza** (4); **erlijioso bizitzaren** (4); **erlijioso edo** (8); **erlijioso eta** (33); **erlijioso eta beste** (3); **erlijioso gisa** (4); **erlijioso guztiak** (6); **erlijioso musulman** (4); **erlijioso nagusiek** (3); **erlijioso nahiz** (5); **erlijioso nazionalak** (6); **erlijioso nazionaleko** (4); **erlijioso ona** (3); **erlijioso sunita** (7); **erlijioso sunita hil** (3); **erlijioso suniten** (3); **erlijioso xiita** (6); **erlijioso xiitak** (6); **erlijioso xiitaren** (9); **erlijioso zein** (3); **eta buruzagi erlijioso** (3); **eta erlijioso** (17); **familia erlijioso** (3); **familia erlijioso eta** (3); **izeneko erlijioso** (3); **obra erlijioso** (3); **ordezkari erlijioso** (3); **politiko eta erlijioso** (4); **sadr buruzagi erlijioso** (12); **sadr erlijioso** (3); **sinesmen erlijioso** (3); **talde erlijioso** (3); **tradizio erlijioso** (3); **zeremonia erlijioso** (4)

agintari erlijiosoek (5); **beste erlijiosoei** (3); **beste erlijiosoei baino** (3); **bizitza erlijiosoaren** (3); **buruzagi erlijiosoak** (7); **buruzagi erlijiosoaren** (3); **den erlijiosoa** (3); **dituen erlijiosoa** (3); **erlijiosoa da** (7); **erlijiosoa ere** (3); **erlijiosoa eta** (15); **erlijiosoa ez** (5); **erlijiosoak ere** (7); **erlijiosoak eta** (8); **erlijiosoak ez** (4); **erlijiosoei baino** (4); **erlijiosoen arteko** (6); **eta erlijiosoa** (18); **eta erlijiosoak** (13); **eta erlijiosoekin** (3); **eta erlijiosoen** (4); **eta erlijiosotik** (3); **fundazio erlijiosoen** (4); **ikastetxe erlijiosoetan** (4); **kantu erlijiosoak** (3); **komunitate erlijiosoen** (3); **musika erlijiosoa** (6); **oso erlijiosoa** (4); **politikoa eta erlijiosoa** (3); **talde erlijiosoen** (3); **talde erlijiosoen arteko** (3); **xiita erlijiosoek** (3); **xiita erlijiosoen** (6); **zibiko erlijiosoa** (3)

---

erlijiosoki *adlag* era erlijiosoan.

Lagun hurkoaren maitasunak moralki debekatuta egon beharko luke, ez **erlijiosoki** aginduta. Joxe Azurmendi

Lurraren sabel zulatuetatik meatzari esklabizatuek lanaren izerdiaz erauzitako ikatzarena zirudien belztasuna eta eguzkipean adats hori joria orrazten ari den neskatxaren ispiluarena ematen zuen argiaren islatzea **erlijiosoki** eta debozioz miresteko. Xabier Mendiguren Elizegi

· Trapu literario koloretsutan beztitua, bortxa historiaren eta Estatu harrapariaren justifikazioa, arima profetikoaren mitologiaz **erlijioso** -mistikoki sublimatua. Joxe Azurmendi

---

erlijiosotasun *iz* erlijiosoa denaren nolakotasuna.

Denborarekin fedea epeltzen joan zitzaien Bretainiako biztanleei, eta Erdi Aroko **erlijiosotasun** sutsua apaltzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erlijiotsu *izond* erlijiosoa.

Eman dezagun oso postura progresistak hartzen dituela politikan, baina zuzenki bere lanean [...], plajiatzaileen izpiritutik urrun eta erromantizismoaren lekuan kokatzen dela, hots, lekurik irrazional, **erlijiotsu**, antihistoriko eta aristokratikoenean. Bernardo Atxaga

Luzaroan jardun zuten hizketan, baina margolariari ez zitzaizkion Rosaren kontuak interesatzen, beste zerbait zegoen neskaren hitzen haraindira, erresuma **erlijiotsu** eta berpizkundeko bat. Aritz Gorrotxategi

Gure teoria zientzia barrukoa da eta ez da **erlijiotsua** ; hautespen naturalarena, ordea, erlijio kutsukoa da. Jenaro Garate

Segur aski aitagandik, gizon oso **erlijiotsua** , Jainkoak adina jakin eta jende guztiari esaten ziona. Anton Garikano

---

erlijiozale *izond/iz* erlijioaren zalea dena.

Ez da herri **erlijiozaleagorik** izan. Juan Martin Elexpuru

Benetako katoliko **erlijiozaleak** . Iñaki Mendiguren

Cromwelen familia oso **erlijiozalea** zen; oso erlijiosoa, baina Ingalaterrako elizaren defendatzaile sutsua, eta katolikoak bihotzaren gihar guztiekin gorrotatzen zituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Denbora-tarte berbera izan zen intoleranteki **erlijiozalea** zen katoliko jaiotako Luis XIV.aren eta kalbinista izandako aitona Enrike IV.aren artean. Iñaki Mendiguren

Norbaitek, bere burua **erlijiozaletzat** jotzen badu, baina mihiari eusten ez badaki, bere burua engainatzen du. Elizen arteko biblia

Erlijiozale kartsu haiek, Alemanian, Ingalaterran, Eskozian, Ingalaterra Berrian eta beste edonon, berpizkunde indartsuenetako baten mende zeudela eta imitazioko judu bihurtzeko joera izan zutela. Iñaki Mendiguren

Itxuraz **erlijiozale** agertuko dira, baina ukatu egingo dute erlijioaren benetako indarra. Elizen arteko biblia

---

erlijiozaletasun *iz* erlijiozalea denaren nolakotasuna.

Aspaldi handian, Persian izan omen zen errege ahaltsu bat, **erlijiozalea** , zuzena, zuhurra eta burutsua, bere erresumako biztanle guztiek ohoratzen zutena. Patxi Zubizarreta

Santu onbera haien hilobien oinetara jartzen zen erromes bakoitza Bretainiako **erlijiozaletasunari** bere ohorea eta umildade osoa eskaintzen zizkion zerbitzari prestu eta leiala zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina **erlijiozaletasunak** salbatzen zuen, oso modu bitxian uztarturik baitzeukan bere bizimodu barreiatuarekin. Jose Morales

Oso artikulu interesgarria dakar **erlijiozaletasunak** laikoen artean izan duen hazkundeaz. Antton Olano

---

erlijiozkotasun *iz* erlijiozkoa denaren nolakotasuna.

Segidan sentitu nuen Mariaren **erlijiozkotasuna** . Piarres Aintziart

Zenbait herrialdetako antropologo eta espezialistak herri **erlijiozkotasun** eta munduko herrien identitateen inguruan eztabaidan arituko dira. Berria - Kultura

Kultur eremu atzerritarrean erlijiozko planteamenduaren bidez beren bidea egiteko hinduen gaitasun frogatu hau esanguratsua zen, zeren eta, **erlijiozkotasuna** baldin bazen haien zibilizazioaren bereizgarri nagusia. Iñaki Mendiguren

Erabateko mistizismoan eta **erlijiozkotasun** sakon batean murgildu zen, bizitzaren zentzua aurkitu ezinik. Jose Morales

---

erliki ik **erlikia**.

---

erlikia *(orobat **erliki** g. er. eta **errelikia** g.er.)* **1** *iz* santu baten gorputzaren, edo santutzat hartzen den zerbaiten zatia, Eliza katolikoak (edo bestek) gurgarritzat hartu duena.

Terexa sainduaren **erlikiak** . Herria

Fede osoz San Frantziskoren **erlikiaren** bat eskatu zien apalki. Askoren artean

Hau asko poztu zen eta Frantzisko dohatsuaren **erlikia** batzuk eman zizkion. Askoren artean

Horrez gainera, santuaren **erlikia** buruan joango zen prozesio zibiko-erlijioso bat egiteko erabakia ere hartu zuten. Askoren artean

Tro Breiz erromesaldia, Erdi Aroan jaioa, Bretainiaren inguruan egiten da, erromesek Armorika zaharreko zazpi gotzain fundatzaileen **erlikiak** bisitatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kristoren gurutzearen zur puska bat gordetzen duen **erlikia**. Joan Mari Irigoien

Hatzarekin aski izanen duzu, zeren **erlikiako** gorpuzkiaren neurrikoa behar baitu. Joan Mari Irigoien

Saindu baten hondakinak, jendearen eritasun eta miseriak, **erlikiek** egin mirakuiluak, mirakuiluen eragin eta kudeaketak, [...] eta nik dakita zer. Piarres Aintziart

Hona bular zaurituan zeraman **erlikia**. Patziku Perurena

Gero Sizilia igaro nuen, lurralde miresgarria izaeragatik eta monumentuengatik, Grekoek eta Normandiarrek utzitako **erlikiak**, hain zuzen. Josu Zabaleta

Erlikia bat bezala gordeko dinat bizitza osoan! Joan Mari Irigoien

Lekaime haren egunkaria **erlikia** bat balitz bezalaxe gorde zuen Andresek. Josu Zabaleta

2

Erlikia santu batzuk guztiz abandonaturik zegoen eliza batetik jaso eta begirune handiz beren bizilekura eramateko agindu zien anaiei. Askoren artean

-Non dago gure **erlikia** saindua? Joan Mari Irigoien

Erlikia zahar hau! Xabier Paya

Eta hemeretzi mende hauetan, **Erlikia** Sakratuei buruzko kondairek mistikoen, ameslarien eta poeten irudimenari hegan eginarazi diote. Alberto Ladron Arana

Zoaz eta ardura zaitez **erlikia** mirakulutsua honat ekartzeaz. Joan Mari Irigoien

Urrin ia ezin atzemanezko bat, hain zaharra non bai baitzirudien usain baten arima zela, zabaltzen zen tiradera misteriozko hartatik eta **erlikia** harrigarri hartatik. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Etxeko bazter guztiak hartuak zituen **erlikia** pilo eskerga hartan eskua sartu eta aukera egiten. Juan Garzia

Mediku forentseek jasoko zuten, agian, zientziaren izenean, **erlikia** kontuetan behin ere seguru egoterik ez badago ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Erlijio **erlikien** antzera, armek indar berezia ditek -pentsatu nuen-, garunen baitako hari ezkutu, sakon-sakonen bat joko balute bezala. Alberto Ladron Arana

4 irud/hed

Beste forma guztietan desagerturiko zibilizazio baten **erlikia** fosildua zen. Iñaki Mendiguren

Volney zibilizazioen historien korrontera Bigarren Gerra Punikoaren garaian iritsi zen herrialde batetik zetorren, eta bera bisitatzen ari zen eskualdea historiaren gertaleku izana zen hiru edo lau mila urte gehiago Galia baino, eta proportzionalki ongi hornitua zegoen iraganeko **erlikia** ikusgarriekin. Iñaki Mendiguren

Nabaria da beste hainbat gizarte bizi dagoela -Kristau Ortodoxoa, Islamikoa, Hindua eta Ekialde Urrunekoa-, baita, etapa honetan, identifikatu gabeko gizarteen zenbait **erlikia** "fosildu" ere, juduak eta parsiak, adibidez. Iñaki Mendiguren

Konstituzioa **«erlikia** aldaezina» ez dela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Opari emateko hartu nituen esne **erlikia** sinestezinen ondoan zeuden konfitura pote zaharrak eta sotoko hornigaien gordailutik atera nintzen, zalantzati, txunditurik. Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baten erlikia (4); **erlikia bat** (6); **erlikia guztiak** (3); **erlikia haiek** (3); **erlikia hura** (6); **erlikia santu** (4); **erlikiei buruz** (3); **eta erlikia** (5); **santuen erlikiak** (3)

---

erlikiadun *izond* erlikia duena.

Iruñean bazizuten ohitura bitxi bat: bertako katedralean, dorreko burdin-sare baten barruan, bi kutxatxo santuen **erlikiadunak** ipintzeko ohitura berritzen zuten Gurutzearen egunean. Pello Zabala

---

erlikiontzi *(orobat **erlikia ontzi** g.er. eta **erliki untzi** g.er.) iz* erlikiak gordetzeko ontzia.

Ez dakit noren erlikiak gordetzen dituen **erlikiontzi** honek. Joan Mari Irigoien

Kapitaina etorri zitzaidan arte, eskuan kutxa tipi bat zuela, lokarri mehe bati lotua eta lepotik dilindan eramaitekoa, zeinak **erlikiontzi** bat baitzirudien. Joan Mari Irigoien

Baina **erlikiontzi** hark ez zuen *lignum crucis*-aren zur zati bat gordetzen. Joan Mari Irigoien

Lepotik dilindan neraman **erlikiontzi** idurikoari so egiten ziola eta hura eskuztatzen zuela, erran zigun-: [...]. Joan Mari Irigoien

Erlikiontziak metalezkoak izan ohi dira, eta sarrailaz hornituak, barneko gauzak atera eta garaiz kanpo mirariak egiten has ez daitezen. Xabier Olarra

Jokabide horrek badu antzik izenak tik bihurturik **"erlikiontzi"** etan gordetzeko duen joerarekin. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erlikiontzi iduriko (4)

---

erlisio ik **erlijio**.

---

erlisiodun ik **erlijiodun**.

---

erlisione ik **erlijio**.

---

erlisios ik **erlijioso**.

---

erlisioso ik **erlijioso**.

---

erlixio ik **erlijio**.

---

erloi ik **erloju**.

erloigintza ik **erlojugintza**.

erloj ik **erloju**.

erlojari *iz* erlojugilea.

Baina, **erlojaria** ez zenez, uraren bidez neurtzen zituen osabak dindanak. Joan Mari Irigoien

erlojero *(orobat **erlojeru**) iz* erlojugilea.

Eskola amaitutakoan **erlojero** hasi zen lanean, baina musikarako zaletasun handia zekarren. Koldo Izagirre

Erlojeroaren pazientziaren eta zehaztasunaren jabe, inork ez bezala zaintzen zuen bere tresna. Koldo Izagirre

Zeinek emango ote lidake **erlojero** izatea! Pablo Sastre

erlojerotza *iz* erlojeroaren lanbidea. ik **erlojugintza**.

Azkenean, **erlojerotza** utzi eta atelier bat zabaldu zuen Donostian, Guerrini italiarra sozio hartuta. Koldo Izagirre

erlojeru ik **erlojero**.

erloju *(ETCn **11.625** agerraldi: orobat **erloj** g.er., eta **erloi** g.er.)* **1** *iz* denbora neurtzen eta ordua adierazten duen tresna. ik **ordulari**.

Talibanek diote amerikarrek **erlojuak** dituztela eta beraiek denbora. Berria - Mundua

Charliek eskumuturrean ipini du **erlojua**. Mirentxu Larrañaga

Besoa altxatu zuen nire gibelean, **erlojua** erantzi, eta uhalaz lotu zidan eskumuturrean. Mirentxu Larrañaga

-Nire ondoan eseri zen atzo arratsaldean Café Sistiana-n -esan zuen Neuhäusl jaunak, **erlojuaren** tapa itxi eta txalekoaren patrikan sartuz-. Anton Garikano

Ganbaratxoko ilunpean, bizpahiru bider altxatu nuen **erlojuaren** estalkia, doinua entzuteko. Juan Kruz Igerabide

Kolorezko txalekoak erabiltzen zituen, eta zilarrezko zintzilikarioak **erlojuaren** katean. Koro Navarro

Masailean zuen orezta beltz, kizkur batek patrikako **erlojuaren** malgukiak adina jirabira egiten zituen. Josu Zabaleta

Begiratu bakoitzean, **erlojua** belarrira daramat, eta tiki-takari adi geratzen naiz. Mirentxu Larrañaga

Erlojuen eraikuntzarako kalkuluak eta mekanismoak ahalik eta modurik egokienean azaldu ditut, erabiltzeko errazak izan daitezen. Santiago Iruretagoiena

Horiek ondorengoei tratatu asko utzi zizkieten makineria eta **erlojuei** buruzkoak, hain zuzen ere, matematikaz eta lege naturalez baliatu zirelako gauza horiek aurkitu eta azaltzeko orduan. Santiago Iruretagoiena

Bederatziak pasatuak izango ziren **erloju** gehienetan. Joseba Sarrionandia

Optikari baten erakusleihoko **erlojuan** ordu biak eta hogeita bost ziren. Lopez de Arana

8:00 irakurriko duzu **erlojuko** numero berdeetan. Joseba Sarrionandia

Erlojuko kukuak fuerte kantatuz gero, euria zekarren -horixe esaten zuen Lucasek-. Unai Elorriaga

San Pankrazio kanpandorreko **erlojuak** jo du: arratsaldeko laurak. Txillardegi

Erlojuak ordua jo zuenean, ate joka ari zirela entzun nuen. Koro Navarro

Erlojua 1:45etan geldirik zegoen. Lopez de Arana

Erlojuak hamabiak jo zituen izebak musu eman zidanean. Koro Navarro

Erloju honek sekula ez omen dit huts egingo, baldin eta ez bazait ahazten **erlojuari** giltza ematea. Mirentxu Larrañaga

Agian **erlojua** aurreratuta egongo da; ez dakit ondo dabilen. Mirentxu Larrañaga

-Ez duzu usteko **erlojua** ostu dizudanik, ezta? -hots egin zuen Dembak, izuturik. Anton Garikano

Gaurtik aurrera «**erlojua** martxan» jarriko da, Ibarretxeren esanetan, bakea eta akordio politikoak lortzeko. Berria - Harian

Erlojuan hasi da atzerakoa; gero eta gutxiago falta da beraz lehergailuak eztanda egiteko. Berria - Gaiak

Denbora? izoztuta dago, **erlojua** geldirik. Berria - Kultura

Lehergailuaren **erlojuak** huts egin zuen. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Orratzak ehun eta hogei kilometro orduko abiadura markatzen du, eta **erloju** digitalak hirurak eta zazpi minutu. Patxi Iturritegi

Denda berria ireki zuen, Azoka Plaza Zaharrean, pragatarren oroitza zenez geroztik, **erloju** astronomikoa dagoen plazan. Felipe Juaristi

Gaua begirik bildu gabe joan zitzaion ia kilo erdia balio zuen **erloju** deportiboari begira. Karlos Linazasoro

Begiak goratu eta Saint-Eustacheren **erloju** argiduna ikusi zuen, elizaren irudi grisarekin batera. Karlos Zabala

Hautsa biltzen ari zirela alferrik **erloju** matxuratuak, beti hamabiak eta hamar minututan iltzatuta zeudelako orratzak. Harkaitz Cano

Autoaren bolante ondoan zegoen **erloju** borobilaren orratzek jiraka jarraitzen zuten. Bernardo Atxaga

Portzelanazko zakur irribarretsuak, zizeilu ilundua, zutikako **erloju** handia. Koro Navarro

Eskuturreko **erloju** eder bat? Eskarne Mujika

Begi harrokeriaz eta handinahiez beteekin, nabarmenkeriaz begiratu zion eskumuturreko **erlojuari**. Patxi Zubizarreta

Gero eta maizago begiratzen zion bere urrezko **erlojuari**. Anton Garikano

Urrezko **erloju** katedunarekin eta zigilu-eraztun gorri batekin. Lopez de Arana

Elizako **erlojuak** erdietako kanpaia jo zuen. Bernardo Atxaga

Zenbat denbora daramat hemen, dorreko **erlojua** aditzen? Hamabi ordu? Anton Garikano

Idazle horiek, gainera, urezko **erlojuak** egiteko metodoak ere aurkitu dituzte. Santiago Iruretagoiena

Egunkari-orrien hotsak eta hormako **erlojuaren** tiki-takak bakarrik eteten zuten isiltasuna. Anton Garikano

-Ze ordutan bizi gara? -galdetuz, paretako **erlojura** zuzendu zituen begiak. Joxemari Urteaga

Sakelako **erlojua** oparituko zioat -pentsatu zuen bere kabutan-. Jose Morales

Mesanotxeko **erlojuak** eguerdiko hamabi eta erdiak zirela adierazten zuen. Bernardo Atxaga

Hamaikak laurden gutxi markatzen zuen San Bizenteko **erlojuak**. Txillardegi

Bulebarreko **erloju** aurrean zeuden. Fernando Morillo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Rañolas **erloju** -konpontzaileak, bere tailer txikian, orduak filosofatzen ematen ditu. Pablo Sastre

Erloju -fabrika batean lan egin zuen hainbat urtez. Eskarne Mujika

Txalekoan **erloju** -kate astun bat agerian zuen. Lopez de Arana

Leihoan gurpilak, gurpiltxoak, **erloju** orratzak eta **erloju** koadranteak zeuden. Matías Múgica

Kamera korazatua irekitzeko, sarraila bakoitzak bere **erloju** -mekanismoaren arabera saltatu ondoren ere, bi gizon behar dira. Xabier Olarra

Trelawney andereñoa adi-adi zegoen te-kikarara begira, **erloju** -orratzen kontrako zentzuan jirarazten zuen bitartean. Iñaki Mendiguren

-Jangelako **erloju** -kaxaren giltza duk. Anton Garikano

Dorreko esku-eskaileretatik igo eta, **erloju** -gelara iristean, tresnaren aurrean geratu ziren; tresna zaharrak ziren, pieza lodiz eginak. Koldo Biguri

Sabel hutsa **erloju** bonba bat bezala taupadaka. Koro Navarro

Erloju bonba da Auzitegi Nazionala prozesurako. Berria - Euskal Herria

Orain **erloju** -mota eta irudi desberdinak azalduko ditut, nork asmatu zituen esanez. Santiago Iruretagoiena

Ez **erloju** tik-takik ez euli firrindarik ez zen aditzen. Matías Múgica

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Prismatiko batzuk ere topatu nituen, leiarrak apurturik, eta kate-**erloju** bat ere bai, kristalik eta orratzik gabea. Juan Kruz Igerabide

Pistolari begiratu zion, sakel-**erloju** bati begiratzen zaion eran. Harkaitz Cano

Mediku ponpoxo batzuk iritsi ziren, esmokin beltza eta txaleko zuria soinean, beren patrika-**erlojua** eta guzti. Xabier Olarra

Hogeita bat segundo eta hogeita hamabi ehunen, bere kirol-**erlojuko** kronometroan. Aingeru Epaltza

Jauregiko aitzin-paretako albo batean genuen eguzki-**erloju** zaharrari beha. Joan Mari Irigoien

Norbaitek -Kupidok, esan zidan Josebak telefonoz deitu eta kontatu nionean- harea-**erlojuari** buelta eman balio bezala. Bernardo Atxaga

Guztia zegoen berdin: kuku-**erlojua**, telefono beltza, Lucasek egindako egurrezko esekitokia, gitarra eskuan zuen gazte tirantedun bat, ispilua, koadro inpresionista baten imitazioa. Unai Elorriaga

Tximiniako apalean, pitxerrak ageri ziren, kobrez landutako paisaiez hornituak, eta pendulu **erloju** bat erabat urreztatua. Karlos Zabala

Altzariak estaltzeko zorroak zeuden, bai eta alabastrozko pendulu **erloju** zutabedun bat ere. Karlos Zabala

Paret-**erlojuko** orratzak bederatzi eta erdietan zeuden. Matías Múgica

Eliz **erloju** batek ordua jo zuen non edo han. Koro Navarro

Emakume **erloju** txikiek, kaxaren aldetik biraturik, izar erorien biribiltasun distiratsuak zituzten. Karlos Zabala

5 irud/hed

Gizakien zein txinpantzeen **erloju** biologikoa hurbileko beste espeziena baino askoz geldoagoa dela aurkitu dute. Berria - Gaiak

DNA aztertu dute espezien **erloju** genetikoa alderatzeko. Berria - Gaiak

Erloju biokimiko sintetikoak sinkronizatzeko era ikertzen ari dira. Berria - Gaiak

Luze bizi den espezie bat denbora gutxi bizi den beste batekin parekatzen baduzu, diferentzia handiak aurkitzen dituzu haien **erloju** molekularretan. Berria - Gaiak

Berilioa **erloju** kosmologiko moduan erabiltzeko teoriak indar handia hartu du azkeneko hamarkadetan. Berria - Gaiak

Memoriaren **erlojuak**. Berria - Euskal Herria

6 *horma-erloju* horman jartzen den erlojua.

Horma - **erloju** baten hotsa bakarrik entzuten zen. Harkaitz Cano

Horma - **erloju** bat, esferan pintaturik loreak zeuzkana. Jose Morales

Bere baitatik ateratako **horma** - **erlojuaren** pendulua balitz bezala. Aingeru Epaltza

Horma - **erloju** elektronikoa, bideoa, zenbait euro... Fernando Morillo

7 *erlojuaren aurka/kontra*

Erlojuaren kontra bezala ibili ziren lanean. Pello Salaburu

Banaka, 45 ontzako egurra ebakiko dute, **erlojuaren** aurka (3, 2, 1, 0 puntu). Berria - Kirola

Angel Vicioso jaun eta jabe izan da **erlojuaren** aurkako proban. Berria - Kirola

Erlojuaren aurkako etaparen ostean mutilak animoz hobeto daude. Berria - Kirola

Ehun herrialde baino gehiago hartzen ari dira parte, OME Osasunerako Mundu Erakundeak gaitza gelditzeko «**erlojuaren** kontrako lasterketa» deiturikoan. Berria - Gaiak

25 kilometroko **erlojuz** kontrako batek jarriko dio amaiera itzuliari. Berria - Kirola

Gidariek 1.438,48 kilometro egingo dituzte, 377,13 kilometro **erlojuaren** aurkakoak. Berria - Kirola

Erlojuaren aurkako munduko txapelduna. Berria - Kirola

8 *erlojupeko* ik **erlojupeko**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere erloju (4); **bi erloju** (3); **da erloju** (5); **erloju bat** (51); **erloju batek** (7); **erloju baten** (8); **erloju biologikoa** (4); **erloju bonba** (5); **erloju bonba bat** (3); **erloju eta** (3); **erloju fabrika** (4); **erloju handi** (6); **erloju handi bat** (4); **erloju handiari** (5); **erloju handiari begiratu** (3); **erloju hori** (3); **erloju hura** (3); **erloju kate** (5); **erloju lehorrak** (4); **erloju miresgarria** (3); **erloju orratzak** (3); **erloju politikoa** (3); **erloju politikoa eta** (3); **erloju txiki** (4); **erloju zahar** (3); **eskumuturreko erloju** (4); **eskumuturreko erloju bat** (3); **eta erloju** (14); **harea erloju** (3); **hareazko erloju** (5); **hareazko erloju bat** (3); **horma erloju** (6); **hormako erloju** (4); **kuku erloju** (8); **paretako erloju** (3); **urrezko erloju** (13); **urrezko erloju bat** (4); **zuen erloju** (4)

bere erlojua (3); **bere erlojuan** (3); **dorreko erlojua** (4); **elizako erlojuak** (5); **ene erlojuan** (3); **erlojua atera** (13); **erlojua atera nuen** (3); **erlojua atera zuen** (5); **erlojua ateratzen** (5); **erlojua ateratzen du** (5); **erlojua begiratu** (11); **erlojua begiratu zuen** (5); **erlojua begiratzen** (3); **erlojua erakutsi** (3); **erlojua ere** (6); **erlojua eta** (11); **erlojua gelditu** (6); **erlojua gelditu egin** (3); **erlojua izan** (3); **erlojua kendu** (4); **erlojua kontsultatu** (6); **erlojua kontsultatu du** (5); **erlojua seinalatu** (5); **erlojua tiki** (3); **erlojua tiki taka** (3); **erlojuak bostak** (4); **erlojuak ere** (4); **erlojuak eta** (5); **erlojuak ez** (3); **erlojuak hamabiak** (5); **erlojuak hamabiak jo** (3); **erlojuak ordu** (3); **erlojuak ordua** (5); **erlojuak ordua jo** (3); **erlojuak orduak** (5); **erlojuak orduak jotzen** (3); **erlojuan seiak** (3); **eskumuturreko erlojua** (5); **eta erlojua** (16); **eta erlojuak** (7); **hormako erlojuak** (3); **kanpandorreko erlojuak** (3); **kuku erlojua** (4); **nire erlojua** (6); **nire erlojuan** (6); **poltsikotik erlojua** (3); **poltsikotik erlojua atera** (3); **sukaldeko erlojuan** (3); **urrezko erlojua** (10); **urrezko erlojua eta** (3); **zuen erlojua** (6); **zuen erlojuak** (5)

bere erlojuari (11); **bere erlojuari begira** (3); **bere erlojuari begiratu** (5); **da erlojuaren** (4); **erlojuaren aurka** (13); **erlojuaren aurkako** (13); **erlojuaren aurkako proban** (3); **erlojuaren azpian** (3); **erlojuaren geziak** (3); **erlojuaren katea** (4); **erlojuaren kontra** (8); **erlojuaren kontrako** (8); **erlojuaren kontrako lasterketa** (5); **erlojuaren kontrakoan** (3); **erlojuaren orratz** (4); **erlojuaren orratzak** (4); **erlojuaren pendulua** (3); **erlojuaren tik** (4); **erlojuaren tik tak** (4); **erlojuari begira** (24); **erlojuari begiratu** (86); **erlojuari begiratu bat** (3); **erlojuari begiratu dio** (10); **erlojuari begiratu eta** (9); **erlojuari begiratu nion** (10); **erlojuari begiratu zion** (40); **erlojuari begiratuko** (4); **erlojuari begiratuko dio** (3); **erlojuari begiratuz** (5); **erlojuari begiratzen** (10); **erlojuari begiratzen dio** (4); **erlojuari begiratzen zion** (3); **erlojuari behatu** (9); **erlojuari behatu zion** (3); **erlojuari egin** (3); **erlojuari erreparatu** (6); **erlojuari eta** (3); **erlojuari ordurik** (4); **erlojuari ordurik ez** (4); **erlojuari so** (9); **erlojuari so egin** (6); **erlojura begiratu** (12); **erlojura begiratu nuen** (4); **erlojura begiratu zuen** (3); **erlojurik ez** (6); **erlojurik gabeko** (4); **erlojuz kontrako** (3); **eskumuturreko erlojuari** (11); **eskumuturreko erlojuari begiratu** (3); **eskumuturreko erlojura** (4); **eta erlojuaren** (10); **eta erlojuari** (15); **eta erlojuari begira** (3); **eta erlojuari begiratu** (8); **hormako erlojuari** (4); **hormako erlojuari begiratu** (3); **inozentzioren erlojuaren** (3); **inozentzioren erlojuaren geziak** (3); **nion erlojuari** (5); **nire erlojuari** (3); **urrezko erlojuari** (3)

---

erlojudun *izond/izlag* erlojuz hornitua.

Garoñakoa **erlojudun** lehergailuaren gisako zerbait da. Berria - Euskal Herria

---

erlojugile *iz* erlojuak egiten dituen eskulangilea.

Liechtenstein-go **erlojugile** kroaziar bat ere bazebilen handik, ekitaldia ikusten. Leihoan gurpilak, gurpiltxoak, erloju orratzak eta erloju koadranteak zeuden, beste ezertan ez zen ezagun hura **erlojugile** baten etxea zela. Unai Elorriaga

Eta **erlojugile** ihes eginaren erakusleiho honetan, ordulari hilen hezurtegi hau. Josu Zabaleta

Ez dira materialak zalantzan jartzen direnak, **Erlojugilea** baizik. Josu Zabaleta

Erlojugile bat aritzen zen etxean lanean, mahai txiki batera makurturik, gauza delikatuak esku artean, lupa begietan, odola inoiz berotu gabe, leihoko argitasun bizian. Karlos Zabala

Horri deritzot nik irakurlearekin bat eginda egotea, irakurleari kartak erakustea, hala nola **erlojugile** trebeak mekanismoaren pieza txikerrak agerian jartzen baititu langile mutilaren aurrean. Javi Cillero

Eguneroko zeure ibilitxoan erloju bat topatzen baduzu, une batez ere ez duzu zalantzarik egiten **erlojugile** batek egina dela. Juan Garzia

Sortutakoa eta izaki sortzailea ezin daitezke gauza bera izan: erlojua eta **erlojugilea** gauza bera izan al daitezke? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

erlojugintza *(orobat **erloigintza** g.er.) iz* erlojuak egiteko jarduna.

Bitartean **erlojugintzan** iraultza bat izan zen: Ameriketan makina automatizatuekin fabrikatzen hasi ziren erlojuak. Pablo Sastre

Hari begira ematen zuen eguna mutil gazteak, erabat liluraturik, eta **erlojugintza** gustuko zuela pentsatu zuen. Karlos Zabala

Jakin izan banu, **erlojugintzara** dedikatuko nintzatekeen. Berria - Harian

---

erlojulari *iz* erlojugilea.

Aldian Chaux-de-Fondsen hogei mila lagun bizi ziren abantzu, haietarik bost edo sei mila **erlojulari** zirela! Pablo Sastre

---

erlojupeko **1** *izlag/iz* lasterketez mintzatuz, banaka edo taldeka eta denbora bitarte beretan atereaz egiten dena.

Munduko **erlojupeko** txapelduna Non eta **erlojupeko** etapa batean. Unai Elorriaga

Denboraldi honetan **erlojupeko** zatiak ugaritu egin dira. Berria - Kirola

Korsikako **erlojupeko** zati luzeetan. Berria - Kirola

Erlojupeko kilometroak: 388,25. Berria - Kirola

Erlojupekoa errepideko txirrindularitza profesionalean lehiatzeko moduetako bat da berez; egun bakarrean, txirrindularien lehiakortasun maila neurtzeko proba. Berria - Gaiak

Arratsaldeko **erlojupekoak** 9,3 kilometro ditu. Berria - Harian

Beste behin Frantziako Tourreko **erlojupekoan** Marinelli frantses indartsuari irabazi zion. Euskal Bizikletako **erlojupekoan** bigarren sailkatu zen, eta ia 50 kilometro orduko abiadan ibili zen. Pello Lizarralde

Espainiako **erlojupekoan**, Iñigo Chaurreau pasaitarra da nagusitu, hunen lehenkusi Mikel Astarlozak hirugarren egin duelarik. Herria

Inoiz, **erlojupekoan** ere, aurreko bat doblatzeko aukera izan eta arerioa ez umiliatzearren haren atzetik amaitu zuen Indurainek. Joseba Zulaika

Erlojupekoko bigarren zatia erosoagoa da, baina txirrindulariak neke handia pilatuta iritsiko dira hara. Berria - Kirola

2005eko Tourra 19 kilometroko **erlojupeko** batekin hasiko da. Berria - Kirola

Atzo bere kirol ibilbideko **erlojupeko** onena egin zuen. Berria - Kirola

Ez da **erlojupeko** normal bat, ihesaldi bateko azken 20 kilometro gogorrak bezalako saio berezi bat baizik. Berria - Kirola

Ikusmin handia zegoen atzo jokatu zen Giroko **erlojupeko** luze bakarrean. Berria - Kirola

40 kilometroko **erlojupeko** laua gaur, Almussafesen. Berria - Kirola

Taldekako **erlojupekoa** jokatuko da asteazkenean. Berria - Kirola

2 irud/hed

Otegik onartu zuen ia **erlojupekoa** jokatzen ari dela zerrenda bateratua onartu ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Erlojupeko sortzailea da bertsolaria. Andoni Egaña

---

erlojutxo *iz* erloju txikia.

Ordutan geratzen nintzen maiz, orduak eta orduak, iragan mendeko **erlojutxo** bati begira. Josu Zabaleta

---

erlojutzar *iz* erloju handia.

Buru-ments bat da zalapartaka: geltokiko **erlojutzarraren** abilezia txalotzen ari da, bi orratzek bat egin dutelako hamabi-hamabietan. Anjel Lertxundi

---

ermandade *iz* interes berak dituzten pertsonen elkartea.

Horren ondorioz, klase sozial diferenteetako gizabanakoak pilatu ahal izango dira hirietan, lehenago ez bezala; eta bertan erakunde sozial eta politiko berriak sortuko: **ermandadeak** eta erkidegoak kasu. Askoren artean

Ermandadekoa zen bentaria, eta, bere makila eta ezpata harturik, bere kidekoen aldetik jarri zen berehala. Patxi Ezkiaga

Mertzeroak, Juanentzat, leku guztietan dira antzekoak, Markinan zein Villarrobledon, Parisen zein Istanbulen; **ermandade** berezi bateko kidetzat dauzka. Iban Zaldua

Ogino egutegia historialari on batek ikertu beharko luke, **ermandade** sekretua zen, alderdi komunista baino hobeto antolatua. Karlos Zabala

Ermandadea: Errege Katolikoek sorturiko milizia zibila (1476), hirietatik kanpo egiten ziren okerrak zigortzeko asmoz. Ostalaria, berriz eta berriz deiadarka ari zen, **Ermandade** Santuaren alde. Patxi Ezkiaga

Brahmanen eliz **ermandadeari** Hindu Zibilizazio jaio berriaren egituraketa politikoan jokatzea egokitu zitzaion paperaz ohartzea. Iñaki Mendiguren

---

ermita **1** *iz* hirietatik at dagoen kapera. ik **baseliza; kapera**.

Esan, Araban bakarrik, 35 elizetan eta parrokiatan dagoela aldareren bat San Martin bertan dagoena; eta beste 13 **ermitatan**. Pello Zabala

-Hauxe izango da **ermita** -esan zuen Mirarik, eliza zirudien eraikin bakarra seinalatuz. Denak ongi neurtu eta deliberatu zuen ez zela moda zaharreko **ermita** haietarik izanen. Fernando Morillo

Ermita izanen zen, baina beste artzainak bezala izanen zen ere, artzain- **ermita** edo **ermita** -artzain. Michel Oronoz

- **Ermitaren** barruan beste **ermita** bat dago -azaldu zion Imanolek. Fernando Morillo

Ama Birjinaren irudi bat gurtzen zen **ermitan**, eta Ama Birjina horrek arrosario eder bat zuen eskuetatik zintzilik. Martin Anso

Ibiltariak ere bota egin du txanpon bat **ermitaren** lurrera, baina ezer zehatzik eskatu gabe, soilik ohitura zaharren zale delako. Bernardo Atxaga

Sartu zen, bada, **ermitan**, belaunikatu zen aldare aurrean, eta hala egon zen, deboziozko jarrera batez, harik eta gizon-taldea urrutiratzen entzun zuen arte. Anjel Lertxundi

San Donato **ermita** Beriain mendi kaskoan, 1494 metretan, aurkitzen da, Nafarroan. Herria

Oilandoiko **ermitaren** bordan. Michel Oronoz

San Estebango **ermita** parean. Txillardegi

Kantu gregoriarren kontzertua Madalenako **ermitan**, Donosti Ereski schola gregorianistarekin. Berria - Kultura

Lasarteko Ama Brigiden komentua eta Azpeitiko Madalenaren **ermita** kultur ondare dira. Berria - Kultura

San Migelen **ermitaraino** joan nintzen pentsakor. Txillardegi

Aitak aipatu izan zigun **ermitako** erromeria famatura joan ginen familia guztia, bazkariarekin eta, egunera pasatzera. Jon Maia

Ermita zaintzen zuen ermitaua agertu zelarik, galdetu zion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Baserri aurre, **ermita** atze eta pago-lizar arteko zabalguneetan dantzan ibilitakoek ondo gogoan dituzte, oraindik ere, Faustinok gehien bisitatu zituen alderdiak. Iñigo Aranbarri

2 (izenondoekin)

Ermita koxkor bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Errezilgo lurraldetik irten gabe, Bedamako auzo urrunean, Erdoiztako **ermita** zuri borobila ere badago. Txillardegi

- **Ermita** erromaniko bat da hau. Xabier Mendiguren Elizegi

Taiko-danbor hotsak **ermita** xintoista batetik zatozan, ezta? Ibon Uribarri

Usaindurik eskopeta eta sardeekin Arno mendiko malda izoztuetan behera zetozen gizonak bere bila ari zirela, senak esan zion San Antonio **ermita** ona zela bertan gelditu eta, gorostian gorosti, errezo batzuk egiteko: hiltzaile bila dabiltzanek ez diete jaramonik egiten eskeko santu-jaleei. Anjel Lertxundi

Inguru hauetako **ermita** ugarien inguruan. Pello Zabala

Halako batean, ermitaren gainean beste **ermita** oso bat jaso zuten, zaharra barruan mantenduz. Fernando Morillo

3 ermitaua.

Domingo kristaua ez omen zuen onartu fraile gisa San Millaneko abadeak, eta horregatik **ermita** laiko pobre bilakatu zen delako gizona. Piarres Aintziart

Biltzar hortan fede haundi batekin boz batek galdegin zuen **ermita** bat igorria izan zedin mendi gainera otoitz egiteko, Jainkoaren haserrea eztitzeko, airea benedikatzeko eta harria urruntzeko, hots, herriaren zaintzeko. Michel Oronoz

Nahi izan zuen lehenik ikusi zer den **ermita** izaitea, zer eginbide duen, gai zenetz. Michel Oronoz

Belaunikatzen da **Ermita**, hatsa gelditu. Michel Oronoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antiguako ermitan (3); **astigarribiako ermita** (3); **da ermita** (5); **den ermita** (3); **dio ermitak** (5); **du ermitak** (7); **edo ermita** (3); **ermita bat** (10); **ermita batean** (4); **ermita baten** (3); **ermita bere** (3); **ermita de** (3); **ermita edo** (3); **ermita eta** (17); **ermita eta basoi** (9); **ermitak eta** (4); **ermitak ez** (3); **ermitaren ondoan** (3); **eta ermita** (10); **madalenako ermitan** (3); **oilandoiko ermita** (9); **zazpi ermita** (3); **zion ermitak** (3)

---

ermitar *iz* ermitaua.

Munduko gaiztakeriaren aurkako protesta gisa basamortura (*erêmos*-era, hango biztanleak eremutar edo **ermitarrak** zirelarik) erretiratu zirenei. Iñaki Mendiguren

---

ermitatxo *iz* ermita txikia.

Ama hilez gero, sor Klara Uraitzeko komenturat itzuli, eta bakarrik geratu nintzen, neure **ermitatxo** honetan ermitau. Joan Mari Irigoien

Eta are eskuin alderago (Ekialderago, alegia), Samartin **ermitatxoa**, betiko bere hartan. Txillardegi

Ermitatxo bat eta lau baserrik osatzen zuten plazatxoa. Jon Maia

Beilak hasten dira, bide bat eta **ermitatxo** bat eraikiak. Herria

Gaurdaino iraun du iturri garbi hark, eta haren ondoan San Frantziskoren ohorezko **ermitatxo** bat eraiki da. Askoren artean

---

ermitau **1** *iz* eremutarra, eremita; ermita batean bizi den pertsona.

Börs ere baselizara erretiratu zen, eta **ermitau** bihurtu. Juan Kruz Igerabide

Ermitau gisa bizi omen zen bakardade gorrienean. Pello Zabala

Lancelotek **ermitauaren** etxolan jarraitzen zuen, zauria sendatu samarturik. Juan Kruz Igerabide

Ermita zaintzen zuen **ermitaua** agertu zelarik, galdetu zion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Hil arte Karmelo mendian bizi izan zen, **ermitau**. Martin Anso

Luzaz bizi izan zen hango kobazuloan **ermitau**. Martin Anso

Gero, erregina moja egin zela ikusirik, Lancelotek **ermitau** bihurtzea erabaki zuen, bere damaren bideari jarraitzeko. Juan Kruz Igerabide

Frantziskok bide propioa nahi du urratu, eta molde ezagunak ez ditu lagungarri ikusten bere sakoneko intuizioa gauzatzeko (ez da estamentu erlijiosoetan sartuko, ez kleriko, ez monje, ezta **ermitau** bezala ere). Askoren artean

Garai horretan **ermitauen** antzeko jantzia zeraman, gerrian uhalez lotua; makila zeraman eskuan eta sandaliak oinetan. Askoren artean

Ermitau baten atxilo-bizitza bekarkit zoriaren mudantzak. Juan Garzia

2 (izenondoekin)

Ethelred heroi zintzoa, atetik sartzean, biziki haserretu eta txunditu zen, ez baitzuen **ermitau** zitalaren seinalerik batere aurkitu. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Jaunaren 1207. urtean, lanbidez merkatari zen Frantziskok [...] penitentziazko bizierari ekin zion, **ermitau** jantzia soinean zuela. Askoren artean

Badirudi ez zirela asko **ermitau**-bizimodua zeramaten anaia txikiak. Askoren artean

4 ***karramarro ermitau*** itsas oskolduna, sabelaldea babesteko itsas barakuiluen maskor hustuetan bizi dena*(Eupagurus bernhardus)*.

Kratesen aburuz, gizona ez zen inondik inora barakuilu bat ez **karramarro ermitau** bat. Juan Garzia

Harenak egin du: aste batzuk baino ez zaizkio geratzen bizirik, oskolik gabeko **karramarro ermitau** horietakoa irudi. Juan Garzia

---

ermuar *izond/iz* Ermuakoa, Ermuari dagokiona; Ermuako biztanlea.

Aitor Galdos txirrindulari **ermuarrak** Italiako Panaria taldearekin korrituko du hurrengo bi urteetan. Berria - Kirola

Jokalari **ermuarrak** ezker belauneko aurreko lotailu gurutzatua hautsi zuen, eta sei hilabetean egon zen jokatu gabe. Berria - Kirola

32 urteko **ermuarra** zuen. Berria - Euskal Herria

Lau gizon: Igor Gonzalez Galdeano gasteiztarra, Igor Astarloa **ermuarra**, Gorka Gonzalez zarauztarra eta Aitor Osa itziartarra. Herria

Ermuarrak eta sopeloztarrak Belodromoaren omenaldia jaso zuten. Berria - Kirola

Talde hau Lampre eta Saecoren arteko uztarketatik sortu da, eta **ermuarrak** datorren urterako Lamprerekin kontratua izan arren, taldetik kanpo utzi dute. Berria - Kirola

---

ernaberri *iz* ernaberritu den gauza.

Dudaren **ernaberria** zerion galderari. Aingeru Epaltza

---

ernaberritu, ernaberri(tu), ernaberritzen **1** da *ad* berriro ernatu.

Askotan **ernaberritzen** da melodia hori nere bihotzean. Patziku Perurena

«Ernaberriturik dager ta lorez orniturik», dio lehen zenbakiko Ataria izeneko testuak. Berria - Harian

Erantzunak moldetu ahalean, haren izakera bihurritzen joanen litzake taigabe **ernaberrituz**. Patziku Perurena

2 (era burutua izenondo gisa)

-Eskuinetara? -hain galdera idorraz zuzendu zitzaion Selifan aldamenean eseririk zeraman neskatilari, euriaren eraginez kolore berde biziko zelai **ernaberrituen** erdian beltz ageri zen bide bat zigorraz erakusten ziola. Jose Morales

---

ernaberrritze *iz* berriro ernatzea.

Ingalaterrako folklorean ere, birsortzea eta **ernaberritzea** pizten zituen zuhaitza omen zuten lizarra. Pello Zabala

---

ernagarri **1** *izond* ernarazten duena.

Latinak itzultzeko plazer **ernagarria** eskaintzen zidan. Piarres Aintziart

Edonola, jakinmina edozein beldur baino **ernagarriagoa** egin zitzaidan, eta laster nengoen aldameneko gelara sartzeko gertu. Jon Alonso

Ez zegoelako inor ahots bizi eta **ernagarriz** "Aurrera!" oihukatuko zionik?, errusiarra irrikaz baitago beti hitz bihotz-altxagarri hori entzuteko. Jose Morales

Australiaz eta beste munduaz iritsi zaizkidan berriak ez dira oso **ernagarriak**. Antton Olano

2 ernegagarria

Jakinen bazenu, zeinen hots **ernagarria** ateratzen duen! Patziku Perurena

Epurua, laharra, elorria, basakarana eta gisakoekin batera, nekez aurkituko baituzu landare zarpazu, xalo eta **ernagarriagorik**. Patziku Perurena

Andrési **ernagarri** gertatzen zaio zu Luisekin dantzan ikustea. Lourdes Oñederra

Ordura arte pentsamendu soila izan zena martxan zen, eta zorabio **ernagarri** baten menera geratu nintzen kulunkan, haizetan dabilen kalatxoriaren antzera. Hasier Etxeberria

---

ernai[1] **1** *adlag* erne; esna.

Haren arnasotsari jaramon egitera, banekien artean **ernai** zegoela. Mirentxu Larrañaga

Ernai egin beharreko lana. Harkaitz Cano

Ernai aurkitu zuten, aldarte onean. Berria - Euskal Herria

Zure merezimenduak eta zure adiskidantza gozoaren atsegin itxaronak edozein lantegi harrarazten eta gau lasaiak **ernai** pasarazten dizkit, zure gogoa argiztatzeko hitzen eta bertsoen bila. Xabier Amuriza

Geroxeago, otoitzean **ernai** ari zela, zerutik zetorren ahots bat entzun zuen. Askoren artean

Han egon nintzen, ohean etzanda, Bertha entzuten ote nuen, adi-adi, **ernai** gau osoan. Mirentxu Larrañaga

Baserriaren inguruko soro eta barruti, txaradi eta baso, azienda eta artalde, oiloetxe eta ukuilu... egongo ez zen ba, atezu eta **ernai** egoteko obligazio eta enpeinurik! Pello Zabala

Hor ikusten dira sugeak ere guztiz **ernai**: Maiatzeko sugeak, urte guztiko berdatea. Pello Zabala

Gauza agerietan ere hauteman dezakezu nola, gogoa **ernai** egon ezik, aldi oro apartaturik eta urrunean aldendurik bezala dagozen. Xabier Amuriza

Hurrengo asteak zementu zakuen artean igaro zituen, zelatan eta **ernai**. Aritz Gorrotxategi

Beharko egon lur jota eta etsita, gau osoa **ernai** eta iratzarrita emanez gero! Mirentxu Larrañaga

Botoiak askatzen dizkionean, usain sekretuago, mikatzagoa, ehiztari sen aspaldi ahaztu uste zuenari dei zuzena egiten, **ernai** jartzen, taupaka. Iñaki Iñurrieta

Ernai, inoiz ez bezala, eta goseak sentitu nuen neure burua. Joxan Elosegi

Ehiztari senaren mende jarria dagoeneko, gorputzak itsu-itsu bide ezagunetik jarraitzen du, irauten du **ernai**, baina gogoan nahastura sortu da. Iñaki Iñurrieta

Hamahiru urtetan, imajina izugarriak kaskoratzen zitzaizkidan, lo arinak lo astunari zainak erauzi ondoan, erdi amets erdi **ernai** egiten nituen goiz-orenetan. Aingeru Epaltza

2 (izenondo gisa)

Arros Nabarrenkoxen aterpetzera deliberatu zelarik, Bassillon plazako gobernari **ernaiak** ongi beterik zituen bihitegiak. Aingeru Epaltza

Etxola batera heltzen ari zirelarik, zahar bat irten zitzaien: oinutsik, zaku oihalez jantzita, begirada **ernai** eta izuaz. Itxirik egon zen lurrin-denda denbora hartan guztian eta lasaitu egin ziren gogo **ernaienak** ere. Pablo Sastre

Zurbila, bekoki zabalean batez ere; begiak urdin obalatuak izango ditu, biziki argi eta **ernaiak**, galtza argiak eta jaka iluna erabiliko ditu jantzita. Josu Zabaleta

Horrelako balalaikak haien soinu lasaia entzutera biltzen diren neskatxa bular-zuri, lepo-zurbilei begi-keinuka eta txistuka aritzen zaizkien hogei urteko mutilgazte **ernai**, irtirin eta modazale horien edergailu eta jostagarri izaten dira. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ernai** (3)

---

ernai[2] *iz* habea.

Ate zokoan kutxa handi bat; eta gainean hegaztegia, **ernaiak** ageri, berinazko tranpa eta idekidura teilen artean. Xipri Arbelbide

Auzitegiak emana du manua, ikusirik zenbat zaharkitua den bastiza, ba du bi urte pasa **ernaiak** emanak direla paretak ez erortzeko. Herria

Azken egun hauetan, mogimendu frango badago horren inguruan, **ernai** haundi lodi eta luze batzu kamiunez hurbildu baitituzte. Herria

---

ernaitasun *iz* ernai dagoenaren nolakotasuna.

Baina aireak **ernaitasun** berdina sortu zuen Ramsay jaunagan ere, eta, Macalister zaharra jiratu zenean kainabera jaurtitzeko, ozenki hots egin zuen, "Akabo denok", eta ondoren berriro, "nor bere bakardadean". Anton Garikano

---

ernal (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik **ernaldu**)

1 ***ernal hazi*** esperma.

Esaten zuten burmuinean ontzi bat zegoela **ernal** haziz betea, eta ontzi hura ez zela berriz betetzen, zegoenarekin moldatu behar zela. Luis Elberdin

Voliniako errusiar ttipien artean, eztei bazkarietan, amagiarrebak hurrak eta oloa jaurtitzen omen zizkion suhiari burutik behera, ezkonberriaren **ernal** haziak ugaltzeko. Patziku Perurena

Inongo seme xalo hark sinalatu zigun, amodio kanta inozente horren sinbologia gordea, besteak beste,iturriko ardao zuria eta amoranteen **ernal** hazia uztartuz. Patziku Perurena

2 (bestelakoetan)

Senar-emaztegaiek hara jotzen zuten ezkondu aurretik, irudiak gurtzera eta eskuak haien **ernal**-organuen gainetik pasatzera. Karlos Zabala

Hurrak jaten zirela aurretik, **ernal** indar biziak bizteko. Patziku Perurena

Venusen harmoniak oso ezberdinak direla ikusten baita: gizon batzuek emakume batzuk gehiago betetzen baitituzte eta hauek beste gizon batzuengandik hobeto hartzen dute **ernal** kolpea. Xabier Amuriza

---

ernalaldi *iz* ernaldia.

Euskal artearen **ernalaldi** luzea lau liburukitan bildu du irakasleak, aurre historiatik hasi eta XXI. mendeari begira jarriz. Berria - Kultura

---

ernalarazi, ernalaraz, ernalarazten du *ad* ernaltzera behartu.

Jaunak, ikusirik Jakobek ez zuela Lea gehiegi maite, **ernalarazi** egin zuen, Rakel ez bezala, hau agorra baitzen. Jose Antonio Mujika

Agian, inoiz ez bezalako sentipenak **ernalarazi** zizkidan, ene baitan zirenik ere sekula sumatu ez nituenak. Mirentxu Larrañaga

Gehienek ez zuten sekula aipatzen euren senar edo ezkontide ergel aspergarririk; zenbaitzuek, artean banandu berriak izaki, itzelezko jakin-min biologikoa **ernalarazteko** moduko deskribapenak egiten zituzten. Mirentxu Larrañaga

---

ernaldi **1** *iz* abereez mintzatuz, ernari dagoen denbora.

Jarduera sexuala ez dago ugalketara bakarrik bideratua, eta emea ernaldu ezin daitekeen garaietan, **ernaldian** eta baita eradoskitze aldian ere izaten da. Luis Elberdin

Normalean, ez dute jarduera sexualik ez aralditik kanpo, ez **ernaldian** ezta eradoskitze aldi luzean ere. Luis Elberdin

2 irud/hed

Udazken edo larrazken hondarrean abiatzen da hurraren **ernaldi** luzea. Pello Zabala

Giza pentsamendua haren **ernaldien** ustekabe zorioneko bat baizik ez da, zoko batean gertatutako ustekabe igarokor, antzemanezin, lurrarekin batera desagertzera kondenatua. Josu Zabaleta

Zibilizazio bat aurreko batekin ahaidetzeko prozesua, ondorengo adibideen azterketan hiru alditan analiza daitekeela aurkituko dugu, krisalida-elizaren ikuspegitik, "sorraldia", **"ernaldia"** eta "erditzea" dei genitzakeenak. Iñaki Mendiguren

Elizaren eta zibilizazioaren paperak alderantzikatu egiten dira orain, eta elizak -lehenago, "sorraldian", bizitasuna zibilizazio zahar batetik lortuak eta, **"ernaldian"**, interregnoko ekaitzen artean itsastatuak- bere sabelean sorturiko zibilizazio berriari ematen dio orain bizitasuna. Iñaki Mendiguren

Giza irudimenaren sorkari baten jaiotza, ezerezaren eta betierekotasunaren arteko atalasea igarotzea den jaiotza, ustekabean ere gerta daiteke, **ernalditzat** premia bat badu. Josu Zabaleta

---

ernaldu, ernal(du), ernaltzen **1** du *ad* arraren haziak emearengan izaki berri bat sorrarazi.

Halabeharrezko prozesu bat da sorkuntza: emeak milaka arrautza erruten ditu eta arrak ere emankortasun beraz jartzen du hazia, baina arrautza batzuk baino ez dira **ernaltzen**. Irene Aldasoro

Begira, ardiak **ernaltzen** dituzten ahari guztiak marradun, pinto eta nabarrak dira. Elizen arteko biblia

Jarduera sexuala ez dago ugalketara bakarrik bideratua, eta emea **ernaldu** ezin daitekeen garaietan, ernaldian eta baita eradoskitze aldian ere izaten da. Luis Elberdin

Emakumea piztien eta lauhankakoen moduan hobeto **ernaltzen** dela uste da gehienbat, horrela hazia hobeto iristen baita, bularrak beherantz eta ipurdia goian. Xabier Amuriza

Lehen aldia da horren denbora luzean izoztuta egon den haziak emakume bat **ernaltzen** duena. Berria - Gaiak

Gizakia artifizialki **ernaltzeko** metodoa. Hasier Etxeberria

Ministroaren iritziz pilulak ez du traumarik eragiten eta **ernaltzeko** gaitasuna babesten du. Berria - Euskal Herria

Abere azkarrenek estaltzen zutenean, Jakobek ziriak jartzen zituen asketan, abereen begien aurrean, zirien aurrean **ernal** zitezen. Jose Antonio Mujika

Obulua **ernaldu** ez denez, estrogeno eta progesterona hormonen kopurua jaitsi egiten da, umetokiko paretak (endometrioak) ezin dio eutsi eta odola kanporatu egiten da. Luis Elberdin

Intsektua **ernaldurik** gertatzen da, arrautzak jartzen ditu eta hiltzen da. Juan Garzia

Ernaldutako obuluek bakarrik egiten zuten aurrera gazuretan. Hasier Etxeberria

Ugaztun emeek ziklikoki uteroko paretak odolez betez joaten diren mekanismo bat garatu zuten, eta horri esker, **ernaldutako** arrautza uteroan ezar daiteke eta bertan hazi. Luis Elberdin

Eguerdiko nahiz gauerdiko hamaiketatik hamabitara bitartean, astelehenez edo larunbatez, **ernaldu** behar zela xakur-emea. Patxi Ezkiaga

Hiru obulu baino gehiago **ernaldu** ahal izango dira, baina ez hiru baino gehiago ezarri, haurdunaldi multipleak saihesteko. Berria - Euskal Herria

Laborariek luzaz beren behiak **ernaltzen** zituzten inzeminazione koperatibako langileak deituz. Herria

2 (landareetan)

Lorea agudo **ernalduko** da, eta xorro biribil batean gordeko ditu, eguzkiak noiz gorrituko bere haziak. Pello Zabala

3 (era burutua izenondo gisa)

Espermatozoidea obuluan sartutakoan, geruza fin-fin bat sortzen zaio obulu **ernalduari**. Tronpek bilo txiki batzuk dituzte, eta horiek bultzatzen dute obulu edo arrautza **ernaldua** uterorantz. Hasier Etxeberria

Nola gerta zitezkeen zelula batetik, arrautza **ernaldutik**, milaka zelulak eratzea eta desberdintzea. Juan Garzia

Bere enbrioi **ernalduak** erabiltzea debekatu diote emakume bati. Berria - Gaiak

Talde horretatik erabat kanpo geratzen dira arrak eta eme gazteak edo antzuak eta eme **ernalduak** migratzen duten kasuetan -ez da arraroa- bi taldeak lekuz eta intentzioz

erabat bereizita egoten dira zenbait hilabetez. J.M. Olaizola "Txiliku"

4 irud/hed

Zuzeneko haziak **ernaldu** ninduen. Aingeru Epaltza

Ez zen lehen aldia bere haziak bizia **ernaltzen** zuela. Aingeru Epaltza

Sentimendu horren haziak ez zuen nigan ezer erein ez **ernaldu**. Anjel Lertxundi

Hitzetan baino begiradan arakatuz maitasun ezkutu bat **ernaldu** ote zen erne nengoen, keinu ñimiñoena eta euforia haren arrazoia aurkitu nahian. Eider Rodriguez

Barruan **ernaldutako** minezko arrainaren buztankadak igar nitzakeen inoiz baino hobeto, eta okerragoa dena, inoiz baino iheskorragoa antzeman nuen gorputz ezkatadun eta lizun hura, inoiz baino burujabeagoa. Eider Rodriguez

Ernaltzen dute erle erregina (espiritua, edo pentsamendua, edo dena delakoa), eta hiltzen dira berehala. Anjel Lertxundi

Tales Miletokoak, zazpi jakintsuetako batek, esan zuen gauza guztien printzipioa ura zela; Heraklitok, berriz, sua zela; [...]; Euripidesek airea eta lurra zirela, eta lurrak zeruko eurien haziarekin **ernalduta** munduan bizi diren gizaki eta animalia guztiak sortu zituela. Santiago Iruretagoiena

5 irud/hed ik **ernatu**.

Une poetiko batek ukitu zuelako ustea **ernaldu** zitzaion barruan itxaropen hazi bat bezala. Irene Aldasoro

Sabelaren muinetik **ernalduriko** garrasiaren hedadura ez zuen ezagutzen. Itxaro Borda

Bestelako edertasuna zuen orain, eta edertasun halakoak maitasun eraberritua eta sakonagoa **ernaldu** zuen nigan bat-batean. Mirentxu Larrañaga

Zerua da guztion aita eta ama lur elikatzailea, handik isuritako ur tantak hartzean **ernaldua**. Xabier Amuriza

Udaberriari agurra emateko lizar-zarbak **ernaltzen** eta berdexkatzen badira aurrena, urte eguzkitsu, epel eta lehorra omen dator. Pello Zabala

Kapitalismo erreala kontzeptua berton uste dut **ernaldu** zitzaidala. Edorta Jimenez

Horregatik, eremitek beren izpiritua **ernaltzeko** pikoa jaten zuten erruz. Patziku Perurena

Istorio haiek irakurtzeak lasaiarazi egiten zuten, are konfiantza handiagoa **ernaltzen** zioten. Mirentxu Larrañaga

Inoiz hil eta lurperatuko bagintuzte ere, lurra **ernalduko** luke gu bion beroak. Anjel Lertxundi

Ezagutzaren **ernaltze** eta jaiotzearen kausa den desirari ezin zaio zehaztasunez haurgintza eta seme deitu. Imanol Unzurrunzaga

Igandea zen, eguerdi bete eguzkitsua, udaberri **ernaldu** berria. Karlos Linazasoro

Testu milimetroraino zehatz-zuzenak, aldi berean, zeharkako iradokizunak eta mugarik gabeko ulerbideak **ernaltzen** ditu nonahi. Juan Garzia

Bat-batean pentsamendua gelditzen denean tentsioz **ernaldutako** egituran, egitura honi shocka eragiten dio. Joseba Zulaika

---

ernalgarri *izond* ernal daitekeena, ernaltzeko modukoa.

Hain axola handikoa da haziak haziekin egoki nahastea era **ernalgarrian**, lodiak arinekin eta arinak lodiekin bat eginez.Harriei bezala eman zien izatea zintzoei eta gaiztoei, zuhaitzei bezala bizitza **ernalgarria**, animaliei bezala zentzumenezko bizitza, eta adimenezkoa beraiei bakarrik aingeruekin batera. Xabier Amuriza

---

ernalketa **1** *iz* ernaltzea. ik **ernalkuntza**.

Badakigu, halaber, klitoria ez zuela gizakiak garatu, baizik eta narrastiek garatu zutela -zakila bezala- duela 300 milioi urte, barne **ernalketa** asmatu zutenean. Luis Elberdin

Ziklo horretan **ernalketa** gertatzen ez bada, odol horrek ez du ezertarako balio, eta, ondorioz, gorputzak egotzi egiten du. Luis Elberdin

Izaki sexudunak gara, eta **ernalketa** gertatzen denetik bertatik gara desberdinak. Luis Elberdin

Ernalketa bide naturaletatik lortu ezin duten bikoteen azken aukera lagundutako **ernalketarako** teknikak erabiltzea da. Berria - Harian

Ernalketarako teknikaren bat baliatzeak 3.000 euro inguru balio du. Berria - Harian

Obulua tronpan zehar umetokirantz bere bidea egiten ari bada, pilulak **ernalketa** eragozten du obulua semenarekin kontaktuan jarri baino lehen. Luis Elberdin

Erresuma Batuan debekatua dago klonatutako enbrioiak **ernalketarako** erabiltzea. Berria - Gaiak

Duela 12.000 urte, sedentarismoak, **ernalketan** gizasemeak zuen betekizuna ikusi izanak, nekazaritzak eta jabetza pribatuak patriarkatua ekarri zuten, eta horrek bikote monogamiko iraunkorra ezarri zuen. Luis Elberdin

Sexualitatea prozesu bat da, eta prozesu hori hasten da **ernalketaren** unean bertan, eta bizitza osoa irauten du. Luis Elberdin

Non hasten da gure bizia (abortua, in vitro **ernalketa**, klonazioa) eta non amaitzen da (suizidioa, eutanasia)? Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ernalketa lagunduaren programan zegoen emakume batek garbi asko azaldu zuen egoera. Luis Elberdin

Bilboko klinika batera jo zuen bikoteak, umea **ernalketa** artifizialaren bidez eduki ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Lagundutako **ernalketarako** teknikak soilik Barakaldoko (Bizkaia) Gurutzetako Ospitalean egin daitezke eta, gainera, itxaron zerrenda luzeak daude. Berria - Harian

Horixe ikusten dute txarto Londresko Lagunduriko **Ernalketa** eta Ginekologia Zentroko medikuek: erabakia hartu aurretik, herritarrek gai honen inguruan zer pentsatzen duten galdetu ez izana. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordenagailu eramangarria izter gainean jarrita erabiltzeak gizonezkoen **ernalketa** organoei kalte egiten diela ondorioztatu du New Yorkeko zientzialari talde batek. Berria - Gaiak

Horrek esan nahi du sexualitatea ez dela senezkoa -esaterako, txoriek habiak egiteko duten ahalmena den bezalakoa-; ez datorkigu zehaztuta **ernalketa** unetik bertatik. Luis Elberdin

Nornahik erabil dezake nire **ernalketa** metodoa arreta apur bat jarriz gero. Hasier Etxeberria

Pilulak trabatu egiten du ernalketa, bai espermatozoideen lana zailagoa eginez, bai **ernalketa** prozesua eraldatuz. Luis Elberdin

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Enbriologia eta Giza **Ernalketako** Bulegoak hartutako erabakiak eztabaida etikoa sortu du. Berria - Gaiak

Plazera eragitea arrari nahiz emeari, barne **ernalketarako** modua sortzea eta habitat berriak konkistatzea. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barne ernalketa (4); **ernalketako bulegoak** (3); **ernalketarako teknikak** (4); **eta ernalketaren** (3); **eta giza ernalketako** (3); **giza ernalketako** (3); **giza ernalketako bulegoak** (3); **in vitro ernalketa** (7); **lagunduriko ernalketa** (5); **lagunduriko ernalketarako** (3); **lagundutako ernalketa** (6); **lagundutako ernalketarako** (5)

---

ernalkor *izond* ernal daitekeena; ernaltzen duena.

Lehenengo emazteek, **ernalkorrak** izan arren, umerik sortu ezin izan zutenen gizon askok gero aurkitu dute natura egokia, zahartzaroa seme-alaben babesean igaro zezaten. Xabier Amuriza

Espetxeetako aberkideok, zuen esklabotza distiratsuaren egun bakoitza, Aberri Egun garbi, **ernalkor** eta etorkizun handiko egun bat da. Jokin Urain

Gudua kreatiboa da, biolentzia **ernalkorra**: "Destruir es crear". Joxe Azurmendi

Jaunak **ernalkor** bihurtu zuen Lea, ikusi baitzuen ez zuela Jakobek hain maite; Rakel, berriz, agorra zen. Elizen arteko biblia

ernalkuntza **1** *iz* ernaltzea. ik **ernalketa**.

Zer parte hartzen dute, **ernalkuntzaren** aurretik, amaren geneek enbrioiaren eraikuntzan? Juan Garzia

Amak eratu duen eta **ernalkuntzaren** ondoren enbrioia osatuko duen arrautzan, ba ote da, enbrioiaren kromosoma-jokoaz gainera, amarengandiko elementu zitoplasmatikorik, enbrioia eraikitzeko beharrezkoa den informazio genetikoren bat daramanik? Juan Garzia

Ernalkuntzaren aurkako metodoak erakutsi, abortatzeko eskubidea aldarrikatu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sor eta lor utzi behar gintuzkeena zera da: behin **ernalkuntza** buruturik, lehenbiziko zelula, arrautza ernaldua, erdibitzen hastea. Juan Garzia

Orobat irudikatzen zituzten gizakien in vitro **ernalkuntzak** dudarik gabe ekarriko zituen egoerak eta fantasiak. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ernalkuntza lagunduaren lege proiektua onartu zuen atzo Espainiako Kongresuak. Berria - Euskal Herria

Klinikek ezingo dituzte **ernalkuntza** lagundu tratamenduetan emakumeak baztertu beren nortasun sexualagatik edo egoera zibilagatik. Berria - Euskal Herria

B i emazte horietarik bat da haur horien ama biologikoa, **ernalkuntza** artifizialaren bitartez ukanik. Herria

Lagundutako **ernalkuntza** bitarteko teknikarik ez diela eskaintzen. Berria - Harian

Lagundutako **Ernalkuntza** Saileko arduradunak. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Ernalkuntza arazoak dituzten bikoteei eta bakarrik dauden emakumeei ahalik eta gehien erraztu nahi diegu seme-alabak izatea. Berria - Euskal Herria

Han itxaron beharko du luze, **ernalkuntza** garai udaberrikora heldu, eta umaontzia itxuratu arte. Pello Zabala

Zergatik etorri zara **ernalkuntza** zentro honetara? Xabier Mendiguren Elizegi

Ernalkuntza arazoak dituzten bikoteei eta bakarrik dauden emakumeei ahalik eta gehien erraztu nahi diegu seme-alabak izatea. Berria - Euskal Herria

---

ernaltzaile *izond* ernaltzen duena.

Eta ez dira jainkoak gizonei ahalmen **ernaltzailea** kentzen dietenak, seme-alaba gozoek inoiz aita dei ez diezaioten eta bizimodua Venus antzuan igaro dezaten. Xabier Amuriza

---

ernaltze **1** *iz* arraren haziak emearengan izaki berri bat sorraraztea.

Ezagutzaren **ernaltze** eta jaiotzearen kausa den desirari ezin zaio zehaztasunez haurgintza eta seme deitu. Imanol Unzurrunzaga

Hazien **ernaltzea** ? Juan Garzia

Madrilgo Unibertsitate Complutenseak **ernaltze** berrien inguruko hitzaldi bat ematera gonbidatu ninduen batean. Hasier Etxeberria

Amona eta biloba nexkaren arteko **ernaltze** aberasgernaminarri horren neurrira iritsi ez arren, aitona eta biloba mutilaren arteko harremanari ere eskaintzen dio tokirik euskal imajinario kolektiboak. Xabier Mendiguren Elizegi

Amodio lizuna, hau da, eder itxuraren **ernaltze** irrits sortzailea, eta, absolutuki mintzatuz, Izpirituaren askatasunaz beste edozein kausa nabari duen Maitasuna, Herra bilakatzen da errazki. Piarres Xarriton

Teknologia jaun eta jabe bihurtzen den egunean, **ernaltze**-eskaera egiteko bulegoan bertan erabili beharreko galdera izango da, umearen sexua erabakitzea aukeran jartzen dutenerako uzteko moduko galdera. Arantxa Iturbe

Emakumearen **Ernaltze** Eskubidearen Eguna zen atzo. Berria - Euskal Herria

Arratsean, afalondoan, parte-hartzaileek hizpidera zekarten, eztabaida guztiz ireki haietan, zer aplikazio izan zitzaketen gizakietan saguan erabilitako *in vitro* **ernaltze**-metodoek. Juan Garzia

2 irud/hed

Berriro mingarritasun antzetsuko edo sakonagoko beste zorigaiztoren bat errepikatzeko arriskuaren **ernaltze** geldiezinak. Pako Aristi

---

ernamin ik **ernamuin**.

---

ernamindu ik **ernamuindu**.

---

ernamuin *(ETCn **582** agerraldi; orobat **ernemuin** g.er., **erna-muin** g.er., eta **ernamin** g.er.)* **1** *iz* hazietan, landarea sortzen den zatia; izaki bizi baten hatsarre bakuna. ik **hozi; enbrioi**.

Zuhaitz zaharrenaren **ernamuina** . Agustin Otsoa

Labana batez **ernamuinak** kentzen zituenean, emakumeak esaten zuen pataten begiak zirela, eta pozoi ikaragarri batez beteak zeudela. Juan Kruz Igerabide

Goizean goiz, mahastietara joango gara, **ernamuinak** irekitzen hasiak diren, granadondoak loretan dauden ikustera. Elizen arteko biblia

Sua zerbait garbia da, lurra, berriz, berehalaxe lokatz bihurtzen da edozein ekaitzen ostean [...]; lokatz ez ezik, **ernaminez** beteriko ustelkeria ere bai, baselina bezain limuri. Joxe Austin Arrieta

Hazia han jarri zuen gizona da sortzailea; emakumeak **ernamuina** zaindu egiten du, besterik ez. Luis Elberdin

-Ez duzu entzun badirela halako **ernamuin** batzuk... halako izaki bizi batzuk airean ibiltzen direnak eta gaixotasunak eragiten dituztenak? Josu Zabaleta

Eta adierazi berari Jaun ahalguztidunak dioena: "Hona **"Ernemuin"** deitua den gizona; horren etorreran dena erneberrituko da; berriro jasoko du Jaunaren tenplua. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Jendearen bulkadek barreiatu gintuzten, itxurako solasaldi baten **ernamuina** hozitu gabe. Aingeru Epaltza

Nork esan behar zidan, Mary Ann, zuri idatzitako gutunen zirriborroak nire liburuaren **ernamuin** izango zirela. Bernardo Atxaga

Esperientzia berrien **ernamuina** izan zen Ustela: *Pott Banda* eta *Oh Euzkadi!* sortuko ziren gero. Berria - Kultura

Alde batera, hala ikusi nahi bada, **ernamuin** horiek berpizkunde-mota bat dira, Txikia erabat hil ez delako erakusgarria. Xabier Mendiguren Elizegi

Esaiozu Dolmancéri, jakinaren gainean jar ezazu heldu bezain azkar, haren inmoraltasunaren pozoiak, nik isuriko dudanarekin batera, neskaren bihotz gaztean ernetzen den bertute-**ernamuin** oro erauz dezan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gaudreaulten tesiek eta Arnheimen oharrek ez dute besterik esaten ezpada kontaketa (eta berdin gertaera den kontaketa **ernamuin** hori ere) denboran baino sekuentzian kokatzen dela gehiago. Josu Zabaleta

Ez dakit zer imajinatu zenuen: kostata baina, azkenean nire baitan maitasun-**ernamuin** bat sortu eta hura aitortu behar nizula akaso? Xabier Mendiguren Elizegi

Eskerrak eman behar zaizkie Jesusen Lagundikoei, ehunka gazte hartzen zituen proiektu baten **ernamuina** izan zirelako. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ernamuin bat (3); **ernamuin bat** (3)

ernamuindu, ernamuin(du), ernamuintzen *(orobat **ernamindu** g.er. eta **ernemuindu** g.er.)* **1** da *ad* hozitu.

Emakumeak sukalde bazterrean utziak zituen patatak **ernamuintzen** hasi ziren. Juan Kruz Igerabide

Horra hor, landatua: garatuko ote da? Ekialdeko haizeak jotzean, ez ote da guztiz ihartuko? **Ernamuindu** den sailean ihartuko da. Elizen arteko biblia

Elikadura bereganatzeko sustraiak lurrean barneratzen dituzte; gero indarrez adarretara igorri eta kimu berriak **ernamuintzen** dituzte, horrela bere izatean irauteko. Imanol Unzurrunzaga

Azaloreen mami zuri guriak **ernamuintzen** ziren, arrosa itzel batzuen antzera, hosto handi berdeen erdian. Karlos Zabala

Hegoaldera eroritako haziak hil egiten, eta iparraldekoak **ernamindu**, arbolak mugitu barik ere, kimuak gero eta harantzago sortuz. Pako Aristi

Nik aukeraturiko gizonaren makila **ernamuindu** egingo da. Elizen arteko biblia

Biharamunean, joan zen Moises itun-etxolara eta Lebiren leinuari zegokion Aaronen makila **ernamuindua** ikusi zuen: **ernamuindua** eta loratua zegoen eta almendra helduak zituen. Elizen arteko biblia

Biharamunean, joan zen Moises itun-etxolara eta Lebiren leinuari zegokion Aaronen makila **ernemuindua** ikusi zuen: **ernemuindua** eta loratua zegoen eta almendra helduak zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 irud/hed

Bizarra puntu horretaraino **ernamuindu** eta hortik aurrera gehiago hazi izan ez bailitzaion. Harkaitz Cano

Dantzan ziharduten mingain guztiek, eta esan zitekeen Florent goizeko lauretatik ilunpean emeki hazten entzuten ari zen zurrumurrua **ernamuindu** zela miragarriro. Karlos Zabala

---

ernamuintze *iz* hozitzea.

Azaro umelean, gari-aletxoa lurraren ilun buxti eta hotzari enkargatuta gero, haretxen esperoan zihoan negua, parte onekoa ote zenentz, ikara punttu batekin, gariaren ernetze eta **ernamuintzea** zaintzen. Pello Zabala

Hiriaren gainetik, ilunpeen azkeneraino, landaretza oso bat zegoen, loraldi oso bat, metalezko **ernamuintze** ikaragarria. Karlos Zabala

---

ernarazi, ernaraz, ernarazten **1** du *ad* ernatzera behartu.

Gau minean **ernarazi** zaituztete. Xabier Montoia

Badira hiltzen zaituztenak, beste batzuek **ernarazi** egiten zaituzte. Josu Zabaleta

Jokoaren usainak gogoa **ernarazi** zien eta autobusa gelditu baino lehen zutiturik zeuden. Iñaki Zabaleta

Bizitzaren gogorkeriak ongia **ernarazten** du bihotz handietan. Felipe Juaristi

Catherine, nahiz eta jende askorentzat erakargarria izan, ez zitzaion atsegin, ez zuen bere erotismoa **ernarazten**. Iñaki Zabaleta

Erleek inongo elkartzerik gabe **ernarazten** dituzte lurrean sakabanaturik dauden haziak, ahora bilduz. Imanol Unzurrunzaga

Sorkariaren edo Sortzailearen maitasunak **ernarazten** du hitza. Imanol Unzurrunzaga

Zientzia Naturaletako klasean entzuna nuen, udazkenak hiru zentzumen **ernarazten** dituela: ikusmena, entzumena eta usaimena. Joseba Sarrionandia

Helburua gure barruko espiritualitate kristaua piztea izango zen beti ere, bizimodu zintzoagorako asmotan jarri eta, ahal bazen, norbaiten barruan ezkutaturiko erlijiorako bokazioa **ernaraztea**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hor behean, paduretan, udako iluntzeetan kurlinken hotsek **ernarazten** dute etorrian astiro datorren gauaren sabela. Edorta Jimenez

Iduri lizun haietarik bakoitzak iratzartzen zizkidan apur bat nerbioak, sutzen zidan apur bat odola, **ernarazten** eta kilikarazten zizkidan apur bat burmuinak, berretzen eta emendatzen zizkidan neure gizonezkotasun ustezkoari zegozkion humoreak. Joan Mari Irigoien

2 (era burutua izen gisa)

Bi ezagutza hauek, ernarazlea eta **ernarazia**, hirugarren elementu batek lotzen ditu, maitasunak alegia. Imanol Unzurrunzaga

---

ernarazle *izond* ernarazten duena.

Bi ezagutza hauek, **ernarazlea** eta ernarazia, hirugarren elementu batek lotzen ditu, maitasunak alegia. Imanol Unzurrunzaga

Ezagutzera biziki bultzatzen duen irrika bera objektu ezagutuaren maitasun bilakatzen da eta seme desiratua besarkatzen du, hots, ezagutza; eta **ernarazlearekin** uztartzen du. Imanol Unzurrunzaga

---

ernari *adlag* sabelean umekia duela.

Emea 60-63 egun egoten da **ernari**, eta 5-9 ume egiten ditu. Gotzon Garate

Ernari zeuden bigak bahitu zituzten, eta hala hiltegiak umekien hilerri bihurtu zituzten. Josu Zabaleta

Ernari geunden eta erdiminetan, baina haizea besterik ez dugu egin: ez diogu lurraldeari salbamenik ekarri, ez munduari haurrik eman. Elizen arteko biblia

Udaberrian zuhaitz guztiak **ernari** bezala egoten dira, eta beren indar guztia hostoetan eta urteko fruituetan jarrita edukitzen dute. Santiago Iruretagoiena

Jada 50 ahuntz baditu, eta guziak **ernari**. Herria

Ehizatik bizi diren populu anitzek zenbait gauza debekatzen dituzte, **ernari** diren emeen ehizatzea bezala. Berria - Harian

---

ernarialdi *iz* ernari dagoen aldia.

"Bisuts urte, gaitz urte", batez ere, haurdunaldi edo **ernarialdi** gaizto, ume izate bihurri eta jaiotze elbarri asko sortzen omen direnekoa, gizakietan ala abereetan. Patziku Perurena

---

ernatu, erna, ernatzen *(orobat **ernetu** g.er.)* **1** da *ad* iratzarri; erne jarri. ik **erne**[2].

Ni ere zerbait gisaz goizik **ernatua**, etxe ondo hartan ibilki nintzen. Janbattitt Dirassar

Unaduraren bortxaz, deusek ez zidan loa arintzen, deusek ez **ernatzen**, iratzargailuak bere lan zakarra egin artean. Aingeru Epaltza

Andre Josebek gizonari so egin zion, eta une hartan, andre gutietsi eta menperatuari izpiritu ahuldua **ernatu** zitzaion eta gorputz ukurtua xut jarri zitzaion, oldartuz. Elena Touyarou

Atea zabaltzen zuten aldiro **ernatu** egiten zen. Iñaki Zabaleta

Hiri duk orain, Paxkal, lehenbailehen **ernatzea**, mugitzea! Daniel Landart

Idek begiak eta **erna**, aitak bezenbat ahal baitu jadanik. Herria

Pirinioetako hartz gehienak **ernatu** dira, jada. Berria - Harian

Irudien ganbara **ernetu** zitzaidan supituan. Hasier Etxeberria

2 irud/hed

50 jendez beteko da gure karrosa; **erna** beraz Herriko Etxerat izenen emaiterat eta jakiteko xehetasun gehiago. Herria

Emakumeari belarriak **ernatu** zitzaizkion, bere lanbidearen sena piztu. Patxi Zubizarreta

Zuhaitzei behatu diegu, loreei, negu gorriaren ondotik indarrez **ernatzen** den naturaren mirakulu urtero errepikatu eta, hala ere, beti miresgarriari. Xabier Montoia

Udaberria heltzean, bakotxa pixten da, xoriak bezala: egunak luzatzen hasten dira, gure indarrak **ernatzen**, aroa goxatzen. Herria

Ikuslearen «emozioak eta espiritu kritikoa **ernatzea**» bilatzen du. Berria - Kultura

Nik ulertzen nuen, ordea, anaia gizagaixo hura, kortejatzaileak ikustean zeloak **ernatu** baitzitzaizkion. Pello Lizarralde

Gaztearen handinahia kitzikatzeko eta irudimena **ernatzeko** bakarrik esan zion hori guztia. Jose Morales

Oroimena **ernatzeko** ez baita usaina bezalakorik. Patziku Perurena

Kankarro bat bete ginebra edateko gogoa **ernatzen** ari zitzaidan. Aingeru Epaltza

Bat-batean, arnoak horretaratua noski, harekin egoteko gogoa **ernatu** zitzaidan. Aingeru Epaltza

Ikuskari horrek **ernatu** zizkidalarik desirak, halaber gogoberotu zizkidan behakoak. Jon Muñoz

Bat-batean jakin-mina **ernatu** zitzaion. Eduardo Matauko

Gosea **ernatu** dit lan horrek. Agustin Otsoa

Oraingo aldian sentipen ernegagarri bat **ernatu** zen nire baitan, nire lagun ederra adarra jotzen ari ote zitzaidan. Aingeru Epaltza

Bere aurpegi puztuan, begiek zehaztasunik gabe begiratzen zuten; ezpain txokoetatik zimur sortak **ernatzen** zitzaizkion. Bernardo Atxaga

Irribarrea ikusiko zuen agurearen ezpainetan **ernatzen**. Imanol Zurutuza

3 hozitu, ernamuina hazten hasi.

Bere baitan bizi berri bat **ernatzen** ari zela jakin bezain agudo utzi zuen saltokia. Aingeru Epaltza

Livornon ereindako hazia da Bilbon **ernatuko** dena, antolatzaileek hasiera-hasieratik buruan zuten moduan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat ernatu (3); **bat ernatzen** (6); **ernatu behar** (5); **ernatu berriak** (3); **ernatu egiten** (3); **ernatu eta** (5); **ernatu zen** (10); **ernatu ziren** (3); **ernatu zitzaidan** (4); **ernatu zitzaion** (8); **ernatzen ari** (5); **ernatzen eta** (4); **ernatzen zen** (3); **ernatzen zitzaion** (3); **gogoa ernatzen** (3)

---

ernatzaile *iz* ernatzen duena.

-Nik pentsatzen dut emaztea biziaren punttan dela; bizi-emaile, eta bizidunen ere **ernatzaile**, baloreen bermatzaile... Menane Oxandabaratz

---

ernatzearren *adlag* ernatzeko.

Misterio hura eta Hirutasun Sainduarena maila berekotzat jota, ahalik eta asots gutiena atereaz jaiki nintzen, Unai ez **ernatzearren**. Aingeru Epaltza

Aspaldian haren itzalpean ari den apez batengandik, kritika horixe espero nuen, euskal iraultza heroiko apezburudun hau pitin bat **ernatzearren** besterik ez bazen ere. Patziku Perurena

---

ernazentista ik **errenazentista**.

---

ernazimendu ik **errenazimentu**.

---

ernazimentu ik **errenazimentu**.

---

erne[1] *adlag* **1** iratzarririk, eskuarki zentzumenak edo buru gaitasunak. ik **ernai[1]; ernerik; esna**.

Erne egon behar, zer gerta ere. Jon Muñoz

Borrokan hasteko prest, gau guztian **erne** eta armak eskuetan zituztela egoteko agindu zien Jonatanek ilunabarrean bere gudariei. Elizen arteko biblia

Ni **erne** nengoan begirada haiei. Xabier Olarra

Ez dezagun lorik egin gainerakoek bezala, baizik eta egon gaitezen **erne** eta argi. Elizen arteko biblia

Armstrong beti **erne**, Ullrich beti lo. Berria - Kirola

Zabal-zabalik eta **erne** genituen begiak. Joseba Sarrionandia

Erne eta arretatsu jardun behar dugu defentsan. Berria - Kirola

Begiak **erne** eta belarriak adi ibiltzea da gakoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Begi argia behar du, eta batik bat belarri **ernea**. Andoni Egaña

Gizaseme, begira **erne**, entzun adi eta jarri arreta erakutsiko dizudan guztiari. Elizen arteko biblia

Nagusi da betidanik bere ahalmenaz; **erne** ditu begiak herrien gain, errebeldeak aurka altxa ez dakizkion. Elizen arteko biblia

Egon **erne**, iraun sendo sinesmenean, joka gizonki eta izan indartsu. Elizen arteko biblia

Egon **erne**, beila eginez, fededun guztien alde erreguan lehiatsu. Elizen arteko biblia

Endredatzeko gogoa dakarrenean, orduan, adi eta **erne**! Pello Zabala

Hilik bizitze horren kontrako txertoa litzake kultura, deus izatekotan: izpiritu plazer bilatzailea **erne** zaintzea. Patziku Perurena

Erne ibili, Jon, berehala zaitugu eta agure erretxin bihurtua! Jon Muñoz

Erne eta zuhur ibili, baina bizkor. Migel Angel Mintegi

Begia eta zangoak **erne** behar dira buruz buruka jokoan. Herria

Kasu egin nahi ez dion sentipen bat ari zaio gizentzen barru-barruan, **erne** ibiltzeko ohartarazten duen kezka bat. Antton Olano

Gure aita Saulek zu hiltzeko asmoa du. Zabiltza **erne** bihar goizean; gorde zaitez toki ezkuturen batean. Elizen arteko biblia

Begira, begira **erne**, eskuz esku dabilen harri horri. Patziku Perurena

Igotzen jarraitu zuen, edozein hots zein mugimenduri **erne**. Joanes Urkixo

Anaia guztiok gauden oso **erne**, gogo-bihotzak Jaunarengandik gal edo ken ez ditzagun, sari edo eginkizun edo mesederen baten aitzakiaz. Askoren artean

Kartzela arreta guztiaz itxia aurkitu dugu eta zaintzaileak ateetan **erne**, baina irekitzean barruan ez dugu inor aurkitu. Elizen arteko biblia

Erne, mugitu gabe, hutsik, kontzientzia pareten artean dago ezarririk; betikotu egiten da. Monika Etxebarria

Arras logaleturik, erdi lasterka, baina beti **erne** jautsi ziren errekan barna, bakoitza bere etxera heldu arte. Eneko Bidegain

Frantzisko, diziplinan zorrotz, **erne** bizi zen eta arreta handiz zaintzen zuen bere burua. Askoren artean

Geltoki guzien izenak **erne** irakurtzen zituzten, hastapenean... baina bidea aitzinatuz bezala, gero eta arrotzago zitzaizkien izenak baizik ez zituzten ikusten. Eneko Bidegain

Belarria **erne** paratuz gero, marmar ozen baten modukoa aditzen zen. Juan Garzia

Holako jende gutxi ikusiko duzu, lurra beste libururik izan ez duen jakintsu xahar horiei gogobihotzak **erne** paratzen. Patziku Perurena

Erne jarri zen Maiza, hitz haiek, bere ustean, ez baitzuten ezer onik iragartzen, eta are gutxiago Iturbideren seriotasunak. Migel Angel Mintegi

Erne jarri nintzen galderaren aurrean. Bernardo Atxaga

Harrigarria zen ikustea zein **erne** jartzen ziren haur zenbait kurtso berezi horietan. Berria - Kultura

Erne jarraitu zuen berbaldia. Koldo Izagirre

Gabardina barruan kikildu itxura eman arren, **erne** zihoan espaloiaren erdi-erditik. Iñaki Zabaleta

Pareta hain zen mehea, ezen haren mugimendu guzti-guztiak jarraitzen baitzituen, belarriak **erne**. Karlos Zabala

Itxaroten egon naiz zuek hitz egin bitartean; **erne**, zuen arrazoibideak aditzen. Elizen arteko biblia

"**Erne** azken lerroari, **erne**!", gaztigatu zion Luigik. Josu Landa

Murruetara igoak, Gilen eta biok haren etorrerari **erne** egoten ginen, huts eginen zigun esperantzan. Aingeru Epaltza

Ideia hori buruan, gelditu eta **erne** begiratu nien koadroei. Bernardo Atxaga

Ni segur naiz mikroak paratzen dituztela hemen, hemen ere mikroak dauzkagula guri **erne**. Koldo Izagirre

Beharbada horixe duk kontua, sortzen diren zer berriei **erne** egotea. Iñaki Iñurrieta

Gaztelua jendez indartzeko eta begiak arrotzen mugimenduei **erne** edukitzeko. Aingeru Epaltza

Erne botika faltsuekin. Berria - Gaiak

- **Erne** fluoreszente horrekin. Koldo Izagirre

Erne norekin hitz egiten duan, aholkatzen zidan aitak gutunetan. Fernando Rey

Erne, beraz, nola erantzuten diozun gure askatzaileari. Imanol Unzurrunzaga

Arrano ehiztari batzuk bezalakoak dira, airean atzera-aurrera,- begiak **erne** etsaia nondik agertuko. Anjel Lertxundi

Gu **erne** eta zu uraren hotsari adi, nondik ote datorren jakin nahi eta hain gauza arrunta aurkitu ezinean. Imanol Unzurrunzaga

Valentzia, UEFAko txapelduna, ezkutuan baina **erne**. Berria - Kirola

«**Erne** eta aktibo egon behar dugu», esan zuen, «prozesua presionatu eta fiskalizatu behar dugulako». Berria - Euskal Herria

Hantxe zegoela, bere aitorlekuan bakar-bakarrik eserita zain, esna eta **erne**, eta bere arterako irribarrez bezala! Irene Aldasoro

Gizaki lez ari naizen orotan -nire gogoa esna eta **erne** dagoela- maitatzen ari naiz. Jenaro Garate

Zuhurrago zebilen, **erneago**, ingurukoei adi. Xabier Montoia

Inoiz baino **erneago** egon behar dugu, bake iraunkorra lortzeko. Berria - Harian

2 (errepikaturik)

Erne-erne egon zen, hala jokatzen baitzuen beti, eztabaida kontu serioetara lerratzen zen orduko. Jon Muñoz

Erne-erne zebilen beti Nadiari atsedenik gabeko bidaia neketsu honen sufrikarioa arintzeko. Karlos Zabala

Beharriak **erne erne** eta kantuz artzeko beti prest. Herria

Metronomoa gelditu ondoren bere lehengusuari begira gelditu zen, **erne-erne**, bere begi marroi serioez. Lopez de Arana

Denak **erne** bai **erne** egon ziren, erbesteratuak beren aberriaz, beren etxe urrutikoaz mintzo direnean sentitzen dutenaren antzeko tristurZure azalpen guztiak entzun ditut, **erne-erne**!aren zantzua nabari baitzuen ahotsean. Xabier Olarra

Lauetan-hogoi urtetan, **erne ernea** ari baita aintzina lan eta lan! Herria

Erne baino **erneago** begiratu zion agureak Ruche jaunari. Jon Muñoz

Erne, **erne**, hau teorema bat da. Jon Muñoz

3 (izenondo gisa)

Eta nola hura baitzen, ordenazale itsuaz gain, zuhurra, **ernea** eta begi-zolia, eta nola, ondorez, haren eskuko izaiten baitzen [...] bat bederaren egunorozko lanen eta sailen banatzea eta esleitzea, hala izan zituen egun haietan ere xehetasunik xeheenak kontuan. Joan Mari Irigoien

Azpimarratu du zoin gizon argia eta **ernea** zen De Monzon, zoin hedadura handikoa! Herria

So sano bat, **ernea**. Piarres Aintziart

Bihotz-belarri **erne** eta adikorrak emango dizkiet. Elizen arteko biblia

Piztuak dituzun zentzumen **erne** eta zorrotzen galderei erantzuten ez dien isilune luze bat. Filipe Bidart

Galdua zuten, itxura guztien arabera, oharmen **erne** eta argia. Xabier Olarra

Aire hartatik oinez jaitsitako neska hura sendoa eta beltzarana zen, panpina **erne** baten aurpegia zeukana. Anton Garikano

Hamazazpi urte ingurko mutil **erne** eta trebe batek. Jose Morales

Jauregiko leiho argituetara begiratzen zuten burua okerturik, begi **erne** eta serioez. Xabier Olarra

Iparla, Izpegi eta Baigurako kaxko eta mazeletan dabilen arranoak bi hegal luze ditu, bi begi **erne** eta bakarra norabidea zuzentzen dion burua. Filipe Bidart

Begitarte **erne**, kokin eta sorgin batekin biltzen du Txominen arreta guzia Graxik. Eneko Bidegain

Aire hartatik oinez jaitsitako neska hura sendoa eta beltzarana zen, panpina **erne** baten aurpegia zeukana. Anton Garikano

Han zegoen neskatoa atarian, osaba ile nahasi pijamaz jantziari irribarrez, begi **erne** kliskarik ere egiten ez zuten haiekin ikertzen. Oskar Arana

Begi **erne-erne** batek soilik antzeman zezakeen halako narrastasun eta zabartasun doi baten arrasto hautemangaitza. Jose Morales

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskaileretan lau mailatik behin husar bat egoten zen zaindari, gau osoa **erne**-jarreran. Xabier Olarra

Gero **erne** itxurako bat aurreratu da, artile txirikordatuzko kapelu bat buruan, eta aski ongi konpondu gara. Juan Garzia

Hiru golde gari **erne**-berri zapaldu edo mahatsondo ilara bat ipurditik atera. Koldo Biguri

· Begi-**erne**, sudur-luxe bat. Janbattitt Dirassar

Haren bizkarrari itsatsia, erbia bezain belarri-**erne** zamalkatzen den mutikoa naiz ni. Aingeru Epaltza

Belarri-**erne** entzuten genituen poliziaren atzaparretatik pasatutakoen kontakizunak. Aingeru Epaltza

Buru-**erneagoa** ere bai. Aingeru Epaltza

5 *ernerik adlag*

Ikasleak **ernerik** besta denbora guzian. Herria

Beharrik hor dira **ernerik** gizon eta emazte batzu gure bidaien gain gainetik zaintzeko! Herria

6 *ez-erne*

Uneoro konparatzen zituen ametsetako seme-alaba eredugarri haiek bere benetako seme-alabekin, seme-alaba alfer, zabar eta ez-**erneak** baitzituen%uneoro konparatzen zituen ametsetako seme-alaba eredugarri haiek bere benetako seme-alabekin, seme-alaba alfer, zabar eta ez-**erneak** baitzituen. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adi eta erne (9); **aski erne** (4); **baina erne** (25); **baina erne ibili** (7); **bat erne** (17); **bat erne zen** (4); **begi erne** (10); **begia erne** (10); **begiak erne** (17); **begira erne** (9); **beharriak erne** (9); **belarri erne** (4); **belarria erne** (13); **belarriak erne** (27); **beti erne** (39); **beti erne egon** (5); **beti erne eta** (5); **bezain erne** (9); **denak erne** (6); **egon erne** (23); **egon erne eta** (4); **ere erne** (26); **ere erne egon** (4)

erne baino (9); **erne baino erneago** (8); **erne bat** (4); **erne batean** (4); **erne batek** (5); **erne begiratu** (4); **erne behar** (7); **erne beti** (7); **erne dago** (9); **erne daude** (10); **erne egon** (89); **erne egon behar** (34); **erne egon beharko** (5); **erne egon beharra** (5); **erne egon eta** (4); **erne egon nintzen** (4); **erne egon zen** (5); **erne egonen** (10); **erne egonen direla** (4); **erne egongo** (9); **erne egotea** (11); **erne egoteko** (26); **erne egoteko deia** (6); **erne egoten** (13); **erne entzuten** (4); **erne erne** (19); **erne ernea** (11); **erne eta** (96); **erne ez** (7); **erne ibil** (5); **erne ibili** (106); **erne ibili behar** (19); **erne ibili beharko** (20); **erne ibili beharra** (12); **erne ibili dira** (9); **erne ibili diren** (5); **erne ibiliko** (8); **erne ibiltzea** (5); **erne ibiltzeko** (17); **erne izan** (4); **erne jardun** (5); **erne jarraitu** (4); **erne jarri** (34); **erne jarri nintzen** (6); **erne jarri zen** (7); **erne jartzen** (7); **erne nengoen** (5); **erne segitzen** (4); **erne zegoen** (9); **erne zeuden** (4)

esna eta erne (7); **eta begi erne** (4); **eta belarriak erne** (4); **eta beti erne** (5); **eta egon erne** (4); **eta erne** (102); **eta erne egon** (9); **eta erne ibili** (7); **eta zaudete erne** (4); **gauden erne** (4); **gizon erne** (5); **gogoa erne** (7); **guztiak erne** (5); **hiltzaleak erne** (6); **hiltzaleak erne ibili** (6); **mutiko erne** (4); **ni erne** (6); **nik erne** (4); **orain erne** (5); **oso erne** (14); **oso erne ibili** (4); **su hiltzaleak erne** (6); **zaude erne** (4); **zaudete erne** (7); **zen erne** (5)

baino erneago (19); **erne baino erneago** (8); **erne ernea** (11); **ernea eta** (11); **eta ernea** (11); **eta erneago** (4); **eta erneak** (5)

---

erne[2], ernetzen **1** da *ad* landareez-eta mintzatuz, sortu eta hazten hasi.

Garagarra berehala **erne** zen, eta hazi, eta, alea bildurik, hura eho, eta ohe ondoan ipini zuen, jateko prest. Patxi Zubizarreta

Erne dira zelaietan loreak, heldu da kanturako garaia, entzun daiteke gure zelaietan usapalen urruma. Elizen arteko biblia

Ondoren, beste zazpi galburu **erne** ziren: zimel, mehar eta haize-erreak ihartuak. Jose Antonio Mujika

Gau eta egun, hazia **erne** eta hazi egiten da, hark nola ez dakiela. Elizen arteko biblia

Erne zen hazia eta mahatsondo mardul egin, altuera txikikoa izan arren. Elizen arteko biblia

Besteak lur gozoan erori ziren; **erne** eta bateko ehun eman zuten fruitu. Elizen arteko biblia

Bakearen soroan gerraren haziak usu barreiatuak direla eta **erne** eta hazteko lur gizena dutela. Xabier Olarra

Nor zinen zu? Nor **erne** zen zure baitan? Josu Zabaleta

2 irud/hed

Badira figura adierazpen modu berrien etengabeko sorkuntzatik **erne** den adierazpen-printzipio bereizi bat balitz bezala hartu duten teorialariak, baina analisi-lan gutxi dago oraindik irudietan egiaz baliatu diren figurez. Josu Zabaleta

Abertzaletasun berri bat **ernetzen** hasi zenean. Joxe Azurmendi

Eta isiltasun horren hondakin artetik, lore makur eta zorigaiztoko bat bezala, hiru silabako hitz bat **erne** zen. Bernardo Atxaga

Barre egiten du ahizpak, gaixoari poza kutsatu nahirik, eta lortu duela dirudi, irribarrea **erne** baitzaio ezpainetan. Imanol Zurutuza

Mutikoaren estuasuna gogoratuz, Josu R-ri barre txiki bat **erne** zitzaion, doi-doi Abenidaren muturrera iristen ari zen momentuan. Pedro Alberdi

Itxaropen izpi bat **erne** zen ene baitan. Xabier Mendiguren Elizegi

Lyotarden liburuan estetika zehatz bat aldezten da, "figural"-aren estetika, irudia irudikapenean desira **ernetzearekin** lotuta dagoen heinean. Josu Zabaleta

Ez zen bakerik egon eguneko ihesaldia **erne** arte. Berria - Kirola

Handiustea **erne** bezain prest erauzten saiatzen zen, bere Jaunaren begientzat iraingarri zen ezeri unetxo batez ere bizirik irauten utzi gabe. Askoren artean

Joera bat **erne** zitzaiola, Donostiako geltokira joan eta aurrean ikusten zuen lehen trena hartzekoa. Bernardo Atxaga

Har beza lurrak zabalik: sor bedi salbamena, **erne** justizia harekin batean! Elizen arteko biblia

Lantzean behin lur hezearen eta belar **erne** berriaren bafada etortzen zen parketik. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erne zen (17); **erne ziren** (5); **erne zitzaidan** (6); **erne zitzaion** (7)

---

ernearazi, ernearaz, ernearazten **1** du *ad* ernetzera behartu.

Baratze erdian bi zuhaitz **ernearazi** zituen: batak bizia ematen zuen eta besteak dena ezagutzeko ahalmena. Elizen arteko biblia

Abereentzat belarra **ernearazten** du, lanerako animalientzat bazka. Elizen arteko biblia

Zerua hodeiz estaltzen du, lurrarentzat euria prestatzen eta mendietan larrea **ernearazten**. Elizen arteko biblia

Lurretik laborea ateratzen du Lurrak landareak ematen dituen bezala, baratzeak hazia **ernearazten** duen bezala. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Bere eskuez hunkitzen du Jesusek, **ernearazten** diozka beharriak eta mihia deslotzen. Xipri Arbelbide

Ez ditu adinak denbora ez-jakinagoan hortzak jausarazten eta nerabea bilo bigunez janzten eta halaber haren masailetan bizar biguna **ernearazten**. Begira, badator garaia, Davidi legezko ondorengoa **ernearaziko** diodana. Xabier Amuriza

Goizero dit belarria **ernearazten**, ikasle onak bezala entzun diezaiodan. Elizen arteko biblia

Bekatuak, agindutik bide hartuta, era guztietako gutiziak **ernearazi** zituen niregan. Elizen arteko biblia

Jainkoa Rakelez oroitu eta, honen eskaria adituz, erraiak **ernearazi** zizkion. Elizen arteko biblia

---

ernearazle *izond* ernearazten duena.

Haren masaila osasuntsu eta mardul haiek hain zeuden ondo eginik eta hain indar **ernearazle** handia gordetzen zuten barruan. Jose Morales

---

ernebegi *iz* ernamuina.

Ilberriko baba eta zalkeak, leka askatu ta ixuri egiten dira; deskuidatuz gero, erne ere bai, eta **ernebegia** bixtan eta luzatuta, ezertarako balio ez dutela gelditzen dira. Pello Zabala

---

erneberri *izond* ernetu berria dena.

Era horretako hainbat distira lurtarrez txundituta, fede **erneberria** iraungiz joan zen Agustin gaztearen baitan eta munduko bestelako arretei bide eman zien, itxuraz erakargarriagoak baitziren. Imanol Unzurrunzaga

Lehen elkarrizketa hauen giroak ideia platondarrak dakarzkigu gogora, kristau fede **erneberriz** apur bat jantzita. Imanol Unzurrunzaga

---

erneberritu, erneberri, erneberritzen da *ad* hozitu.

Hona "Ernemuin" deitua den gizona; horren etorreran dena **erneberrituko** da; berriro jasoko du Jaunaren tenplua. Elizen arteko biblia

---

ernegagarri *izond* ernegatzen duena.

Lehengo bero **ernegagarri** bera, aire erre, lehor bera egiten zuen oraindik. Josu Zabaleta

Txorien txilio **ernegagarriez** konturatu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta "ii" ozen eta barre txiki zoroz betetako hizkera **ernegagarria**. Joxean Sagaztizabal

Nazkatu egiten zuten hango egurats garbiak, hango bizimodu atseginak, hango lasaitasun **ernegagarriak**. Alberto Ladron Arana

Jadanik ohitua egon behar nuen, baina aurreko bietan txundidurak baizik ez baninduen jo, oraingo aldian sentipen **ernegagarri** bat ernatu zen nire baitan, nire lagun ederra adarra jotzen ari ote zitzaidan. Aingeru Epaltza

Kabuaren geldotasuna **ernegagarria** zen. Alberto Ladron Arana

Lurra antzua da lurra mingarria da lurra lakarra da lurra **ernegagarria** da lurra iluna da. Koldo Izagirre

Ernegagarria egiten hasia zitzaidan Charlyren lazkeria. Aingeru Epaltza

---

ernegailu *iz* ernetzeko gailua.

Jogurta egiteko aparatuen antzekoak izango diren **"ernegailu"** automatiko txikietan era askotako landareak hozitu ahal izango dira etxean bertan, lurraren premiarik gabe ere, ernamuinak entsaladan edo postrean kontsumitu ahal izateko, adibidez. Edorta Agirre

---

ernegaldi *iz* ernegaturik egoten den aldia.

Debozio handiko gizona zen, eta bere **ernegaldiak** izaten zituen arren musulmanen legearen arabera bizitzen saiatzen zen. Xabier Aranburu

---

ernegante *izond* ernegarazten duena.

Edo inuzentea, nazkagarria edo errea, militante bat bezain **ernegante** eta neurotikoa, guraso bat bezain xitala, tristea eta alua. Iñaki Segurola

Joxemielek filologo zital **ernegante** bat du moilan zain, eta batelean dakarren jeneroa pisatu, eta filologoak karga gehitxo dakarrela irizten dio, eta kargu hartzen dio esanez bolantarik eta pelagikorik ez dela libre, eta direnekin nahaste, ez direnak eta ezin daitezkeenak dakartzala itsasotik. Iñaki Segurola

---

ernegarazi, ernegaraz, ernegarazten, du *ad* ernegatzera behartu.

Katy hatsanka eta puzka doa beti bezala, baina, dirudienez, horrek ez du jadanik David **ernegarazten**. Oskar Arana

Batez ere, haren niganako mesfidantzak, edo dena delakoak, **ernegarazten** ninduen, "it's okay" etengabe esaka. Joxe Austin Arrieta

Ez zion axola **ernegarazten** banaun ere, beti zainduko haut. Juan Garzia

Martinek bazekien Katalinaren anaiaren gorrotoaren berri, eta uste ez zuela harekin topo egiten zuenean, itzuri egiten zion, eta horrek Karlos areago amorrarazten eta **ernegarazten** zuen. Koro Navarro

Moja gajoa **ernegarazten** jarri zen, amorratuta arrunt. Koro Navarro

Beste biak **ernegarazten** zeuden, eta hitzik egin gabe erreparatzen zioten elkarri. Koro Navarro

Bere ondasunaren kontenplazioa konpartitu behar hutsak **ernegarazi** egiten baitzuen senarrik jeloskorrena baino are jeloskorrago bihurtutako Herbert marinel perla-bilatzailea. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Ernegaraziko** nauzu azkenean. Koro Navarro

---

ernegarri *izond/iz* ernetzen duena.

Nik uste, oraindik lan haundia egiteko daukagula haien sinbologia aztertu, tradizio unibertsalean txertatu eta, gizaldi gazteei argi **ernegarritzat** eskura ematen. Patziku Perurena

Hiri pizgarri, **ernegarririk** ezagutu nahi baduzu, zoaz New Yorkera. Gotzon Garate

Bihotzaren hoztasun bat, hondoratze bat, gaizkitze bat zen hura: gogoaren goibeltasun irtenbide gabea, irudimenaren ezein **ernegarrik** bikaintasunaren aldera ezin desbideratu zuena. Koro Navarro

Beste nonbaitetik zetorkien gogo- **ernegarria** : deskubritu berria zuten *Pott Banda*, entzuna zuten *Ustela*koen berri, nahiz eta aldizkariaren alerik inon aurkitzerik izan ez, eta halako mira bat sorrarazia zien, abangoardiako literatura posible baten mira. Iñaki Iñurrieta

---

ernegata ik **ernegatu 6**.

---

ernegatu, ernega, ernegatzen *(orobat **ernegau** g.er.)* **1** da/du *ad* erabat gogaitu; amorratzen jarri.

Ez zaitez gehiago kezka eta **ernega**, momentuz ezin baitugu besterik egin. Askoren artean

Nazkatu bai, baina **ernegatu** ez. Pello Zabala

Erraz **ernegatzen** zen, baina denbora gehiena gogo erdi galduta egoten zen, begiak ur izoztuaren moduan zabalik. Joseba Sarrionandia

Osaba Gradelle **ernegatu** zen, ondo egina zegoela esan zuen, kirten handi horrek zertan endredatu behar zuen gizatxar errepublikazaleekin. Karlos Zabala

Gero, bere buruarekin **ernegatu** zen, prestatzen ari zen herri mugimenduan pentsatzen zuela. Karlos Zabala

'Sats eginda nago!' **ernegatzen** zen. Joseba Sarrionandia

Ernegatu egiten zen hutsen bat egitean, gauzak hobeto egiteko gai izanda zerbait gaizki egin duela ohartzen dena **ernegatzen** den bezala. Berria - Kirola

Pinguinoa **ernegatu** eta idazlearen atzean etorriko da kanpamenturaino, protestaka, oso haserre. Joseba Sarrionandia

Goiz euritsuek **ernegatu** egin zuten Florent. Karlos Zabala

Ez zintudan **ernegatu** nahi, barkatu, nire ahotik ez da horri buruzko hitz gehiagorik aterako. Jon Alonso

Baina gurdizaleak **ernegatzen** ari ziren. Karlos Zabala

Zerbaitek **ernegatzen** nau eta ez dakit xuxen zerk. Hasier Etxeberria

Etxea goitik behera arakatu arren ez zuten idazlearen argazki bakar bat ere aurkitu eta horrek **ernegatu** zuen komisarioa. Joxean Agirre

Ez zegoen egunkariko albisteren batek aita haserretuko ez zuen egunik, eta **ernegatzen** zuten albiste guztiak Alemaniari buruzkoak ziren. Anjel Lertxundi

Elkarrekikoa idatzi bidez moztu ondoren, hantxe berriro, elkarrekin ateratzear: horretxek **ernegatzen** ninduen, ez bestek. Joxe Austin Arrieta

Gero ulertu zuen Lisa ederra txit **ernegatua** zegoela Florentek "andre horiek" maiz ikusten zituelako. Karlos Zabala

Zerua hodei astuna zen, hodei bakarra, urdinezko pitzadurarik gabea, eta **ernegatzeko** moduko erregulartasunez erortzen zen euria, ez gehiago, ez gutxiago. Jon Alonso

Egoskorra duk, gero! -esan zuen Txitxikovek bere artean, **ernegatzen** hasirik. Jose Morales

Gogor jokatzen dute, denak emanda, txartelen mugatik gertu, aurrelaria **ernegatzeraino** askotan. Berria - Kirola

Ni isilik, **ernegatuz** eta marmarka baina burua paper artean sartuta. Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud/hed

Itsasoa **ernegatuko** da. Joseba Sarrionandia

3 (era burutua izenondo gisa)

Harvey Keitelek polizia **ernegatu**, urduri, bizi eta obsesiboa antzezten du. Lo hartu nahi lukeen haur **ernegatua** bezala. Berria - Harian

'Ez, ez eta ez!' dio kankailuak, ume **ernegatuaren** keinuekin. Joseba Sarrionandia

Nabarmena da idaztea katarsia, terapia, liberazioa zela Saderentzat, kaiolaratutako basapizti **ernegatu** eta etsi harentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aldian-aldian purrustaka eta bizkarrak uzkurtuz botatzen zituen esaldi labur eta **ernegatuen** bitartez. Fernando Rey

Ez zen eseri, hondamenditik gelditu ziren lerro gutxi horiek urduritasun **ernegatuaz** begiratu zituen. Jon Alonso

4 arnegatu.

Honek, anker jokatuz, piratei agindu zien bizitza barkatuko ziela baldin eta kristau fedeaz **ernegatu** eta mahomatar bihurtzen baziren. Martin Anso

Eta orain hil nazazu, badakit-eta, nire fedeaz **ernegatuta** ere, hil egin behar nauzula. Martin Anso

5 ***ernegaturik*** *adlag*

Ernegaturik, Jesus Galindez Madrilera itzuli da. Edorta Jimenez

Egun guztia zitalduta iragan nuen, **ernegaturik** eta laborategiko lankideen galdera betikoetara eta ohizko betebeharretara makurtu ezinda. Hasier Etxeberria

Goizeko seietan puntuan iratzartzen gintuen kanpai hotsak, eta ohea berehala utzi behar genuen, erdilotan, sorgortuta, **ernegaturik**, eta ordu laurden genuen komunera joan eta janzteko. Joseba Sarrionandia

Ohea berehala utzi behar genuen, hotzez dardaraka, **ernegaturik**. Joseba Sarrionandia

Ni isilik, **ernegatuz** eta marmarka baina burua paper artean sartuta. Xabier Mendiguren Elizegi

6 ***ernegatuta*** *(orobat* ***ernegata*** *g.er.) adlag*

Ama iluntzean etortzen da nire bila, supermerkatuko lan nekeza amaitu ondoren, eta, gauza batengatik edo bestearengatik, **ernegatuta** bueltatzen da beti: edo bezero guztiak justu ixteko orduan agertu omen zaizkielako, edo diru-kontuak ondo atera ez direlako, [...]. Patxi Iturritegi

Ernegatuta zegoen amarekin, lagunen begirada burloiak sumatzen baitzituen, eta masaila apartatu zion amaren agur musuari. Joseba Sarrionandia

Sumatu egiten da erregea **ernegatuta** dagoela baina ez duela ernegua kanporatu nahi. Jon Alonso

Ernegatuta omen zebilen, egundoko amorrazioan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hil itzazue -agindu zuen Aragogek **ernegatuta**, klaska eginez-. Iñaki Mendiguren

-Baina non sartu haiz? -oihu egin zuen Martinek **ernegatuta**. Koro Navarro

'Dena ez da zure eskema sinpleetan eta zure sei zazpi berba asmatuetan kabitzen,' esan du Arantxak bere nebarekin **ernegatuta**. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ernegatu egin (3); **ernegatu egiten** (7); **ernegatu egiten zen** (3); **ernegatu eta** (5); **ernegatu zen** (5); **ernegatu zuen** (3); **ernegaturik eta** (3); **ernegatzen ari** (3); **ernegatzen hasia** (4); **ernegatzen zuen** (3); **eta ernegatu** (3); **eta ernegatua** (3); **eta ernegatzea** (3); **eta ernegatzen** (3)

---

ernegatze *iz* erabat gogaitzea; amorratzen jartzea.

Ofizioan amorrazioa eta **ernegatzea** besterik lortzen ez duzun bitartean, afizioan gozamena eta asebetea. Patziku Perurena

Angelen hilketa, kartel bat jarri nahi izan ez zuelako, PPk egunotan xaxatu duten **ernegatze** giroaren ondorio zuzena da. Berria - Euskal Herria

---

ernegau ik **ernegatu**.

---

ernegazio *iz* ernegatzea. ik **ernegu**.

Ikusten denez, etsipenak, etsimenduak eta **ernegazioak** argialdiaren itxura ere har lezakete zenbaitetan, ilunaldiarena bezalaxe. Iñaki Segurola

Ernegazioa bideratu eta, hotz-hotzean, hautsi gabe zabaldu nuen sobrea. Xabier Mendiguren Elizegi

Ederra izan zen ikuskizuna, lagunekin zeppelina ikustera joan ezinaren amorrazioa eta aitaren kontrako **ernegazioa** momentu batez ahazterainokoa. Anjel Lertxundi

Florent argalduz zihoan bere zamar beltz higatuen barruan, eta haren begitartea horitzen hasia zen irakaskuntzaren **ernegazio** ankerren kariaz. Karlos Zabala

Negar egiten zuen **ernegazioz**. Karlos Zabala

Quenuk gaitzespenez eta **ernegazioz** begiratu zion. Karlos Zabala

Goiz batzuetan, Marjolin zirikatzen zuenean, edo negar eginarazteraino adarra jotzen zionean, sorta basatiak egiten zituen, **ernegaziozko** sortak, lurrin zakarrekoak, kolore mingarrikoak. Karlos Zabala

Gazteak lezakeena noski, baina eskuarki zaharrak pilaturik dakarren desengainu eta **ernegazioarekin** ez dirudi zaharra oso lezakeena izatea komeni denik. Karramarroak bortitzago estutu zion inondik ere, gorri-gorria jarri baitzen eta hanka hautsi baitzion, **ernegazio** keinu azkar batez, irribarrea ezpainetatik galdu gabe. Iñaki Segurola

Ernegazio puntturen bat ere egon daiteke esaera horretan disimuluan. Pello Zabala

---

ernegu **1** *iz* ernegatzea; amorrua. ik **ernegazio**.

Sumatu egiten da erregea ernegatuta dagoela baina ez duela **ernegua** kanporatu nahi. Jon Alonso

Errotiko eszeptizismo honek azaltzen du bere lehen sentimenduak ustekabea eta **ernegua** izatea, telefonoan zuzendariaren idazkariaren ahotsa entzun zuenean. Jon Alonso

Donatienen protesten tonua eta haren kartzela-zainen **ernegua** batera doaz igotzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hemen, **erneguek**, nahikariek, milikeriek, oihartzuna aurkituko dute, emakume bakoitzak besteen hitzetan bere hitzen oihartzuna topatuko baitu, genial, genial. Joseba Sarrionandia

Sindikatuen «**ernegua** eta kezka» biziagotu zituzten Ekononomia ministroaren adierazpenek. Berria - Ekonomia

Ernegua, lotsa, nazka, zoritxarra, etsipena, bakardadea sentitu nituen. Joseba Sarrionandia

Sendagilearen eskua antzeman dut tximista bezain bizkor, eta gero belarrondokoaren zaplada, ulertzen nuen bere **ernegua**, ez ordea bere hitzak. Urtzi Urrutikoetxea

erneguzko ekintza bortitz bat izan da. Berria - Mundua

Raimundo Silva halako **ernegu** sor bat sentitu zuen gizon harekiko, nolabaiteko bekaitza. Jon Alonso

Pazientzia mugarik gabea du batek, eta **ernegu** bizia besteak. Berria - Kirola

Muturra okertzen du, **ernegu** itxurak eginez. Edorta Jimenez

Goio harridura eta **ernegu** eta gorroto aurpegiarekin geratu zen bikotea zihoan Zubietaranzko iluntasunari begira. Joseba Sarrionandia

---

erneguka *adlag* ernegatzen.

Erneguka aritzen nintzen beti egunkariaz, baina, nire kolkoan, ez zitzaizkidan hain zoritxarreko iduritzen irteera ordu beranduak edo bi asteburutan behingo lana. Aingeru Epaltza

Lagunaren emazte Josefinaren ahotsa **erneguka** eta haur baten intziriak belarriratu zizkidan aparatu salatariak. Aingeru Epaltza

---

ernemuin ik **ernamuin**.

---

ernemuindu ik **ernamuindu**.

---

ernetasun *iz* ernea denaren edo erne daoenaren nolakotasuna.

Jakite hori, beraz, arte bat da: **ernetasuna**, ohartasuna, usna. Askoren artean

Ernetasuna bihurtu zen orduan gakoa, erne ibili behar zuten guztiek guztiekin. Oskar Arana

Iruzkingileen **ernetasunak** ez du hutsik egin. Xabier Arregi

Bizitzaren ohiko arriskuak behar ditugu gogoan iragan eta maiz irudikatu, ikusteko nola, hobekienik, saihesten ahal ditugun eta gainditzen, izpirituaren **ernetasunari** eta sendotasunari esker. Piarres Xarriton

Nortasuna galtzean galdu egiten da kezka, presa, **ernetasuna**. Anton Garikano

Ongi erantzuten ari zitzaion tratamenduari, sorgortasunetik **ernetasuneranzko** bere barne-bidaia hartan, nolabait esatearren. Joan Mari Irigoien

Begietan **ernetasuna** eta konfiantza distiraka zituen, eta bazirudien munduan bakarturik bizi zela, denetik isolatua. Patxi Zubizarreta

Hofrat jaunaren **ernetasunari** esker bakarrik eragotzi zen behin betiko hondamendia. Anton Garikano

Gizonari besarkatua eseri izan zen sofari, non haren gomendioak eta hitz samurrak **ernetasunez** entzun izan baitzituen. Patxi Zubizarreta

Agure eszeptiko eta ironiko bat zen, erretorika guztien etsai [...], buruargia, tematia, eta ernea, bere gisako **ernetasun** triste batez. Juan Garzia

Irakiarrok, **ernetasun** handiz, espero dugu burujabetza osoa berreskuratzea Segurtasun Kontseiluaren ebazpenaren bitartez, herrialde aske, independente, demokratiko eta federal bat eraikitzeko aukera izan dezagun. Berria - Mundua

Jesu Kristo gure Jaunaren irakaspen eta oinatzei osoki jarraitzea, **ernetasun** eta ardura osoz, barne irrika eta bihotzeko zaletasun guztiz. Askoren artean

Ernetasun eza, zozotzea eta gogamenaren moteltasuna. Xabier Olarra

Ernetasun gabeziaz jokatu baldin badut, erantzule agertzeko prest nago. Berria - Mundua

---

ernetu ik **ernatu**.

---

ernia ik **hernia**.

---

ero *(1.787 agerraldi, 220 liburu eta 232 artikulutan) izond/iz* **1** pertsonez mintzatuz, zentzua galdu duena; gauzez mintzatuz, zentzu edo neurri gutxi adierazten duena. ik **zoro; ergel**. ant **zuhur**. (pertsonez mintzatuz)

Hara nire anaia **eroaren** bizitzeko lezioak. Pello Lizarralde

Sarah erabat hartua dauka bere alaba **ero** horrek. Koro Navarro

Tratua duk atso **ero** horrekin?, galdetu nion. Anjel Lertxundi

Emakume **ero** bat zen, hogeita hamar urtetik gora artzainen errukitik bizi zena. Josu Zabaleta

Argia ehizatzera goizeko bostetan jaikiko den morroi **ero** eta morfinazale batekin. Hasier Etxeberria

Galdera errepikatu behar izan zuen da Rua **eroak**, ahotsa bortxatzeke. Felipe Juaristi

Eligio **eroaren** gisan kantuan. Josu Zabaleta

Lau urteko ume **eroen** moduan eztabaidatzen dira aparkatzeko lekuengatik. Oskar Arana

Zahar **ero** hauen atzetik ez gaituk inoiz mugituko San Giovannitik. Josu Zabaleta

Gure argazkilari Patxik, panteoi handi batera igota, frankotiratzaile **ero** bat ematen zuen, kamerari su atera beharrean. Aingeru Epaltza

Bozinakadak eta zalaparta, "crazy people", jende **eroa**, marmar egin zuen taxilariak. Iñaki Zabaleta

Ero eta zentzudun, edozeinen aurrean jabetu behar du zaldun ibiltariak, andereen izen onagatik. Juan Kruz Igerabide

Zaindariek bakartutako ziega batean «**ero** bihurtzeko» sartu zutela. Berria - Mundua

- **Ero** batek ez du inoiz horrela idazten, eta sanoegi dagoen batek ere ez. Joxean Agirre

-Hire anaia zoroa dela, burutik eginda dagoela, kaskezurretik jota, **eroa** dela, ez dagoela burutik sano! Mirentxu Larrañaga

Ileluze potrodun eta **ero** samar hura. Juan Kruz Igerabide

Pintorea **ero** samarra zen, ordea. Pello Lizarralde

Oso ausarta zara, edo oso **eroa**. Felipe Juaristi

Behardunen defenditzale suharra, doi bat **eroa**. Herria

Ero baten gutunak. Josu Zabaleta

Jakin al daiteke, ordea, jakin, nortzuk diren zuhurrak eta nortzuk **eroak**, askotan arrazoiari eromen eta erokeriari jeinu deitu beharko litzaiokeen bizitza honetan? Josu Zabaleta

Bere eromenean hitz arraroak jaulkitzen zituen, eta, **ero** guztiek bezala, bazuen ideia finko bat, mamu batek jarraitzen ziola uste zuen. Josu Zabaleta

Eroaren distira zuten Snaperen begiek. Iñaki Mendiguren

Eroen gogoari begira aritzeak ere ez du ezertarako balio. Josu Zabaleta

Bizilagunei galdetuz gero berriz, Skillman kalearen ertzean dagoen etxe orlegia **eroz** beteta zegoelako ustea omen zuten duela zenbait urte. Harkaitz Cano

Eroen lanbidea iruditzen zaizu gurea? Josu Zabaleta

Gero burua paretaren kontra jo zuen **eroa** bezala. Iñaki Mendiguren

Apaiz hori sutan jarri zen **eroa** bezala. Pello Lizarralde

Eroa bezala noa, oinak trabatu egiten zaizkit, erorika noa. Bernardo Atxaga

Eroak bezala idazten zituen orriak eta orriak. Pello Lizarralde

Joan Bataiatzailea ez zen **eroa** Kaligula bezala, baina tonto samarra zen, zeren garrasika ibiltzen baitzen basamortuan, inork aditu ezin zion tokian. Bernardo Atxaga

Denok gogora dezakegu gazte edo **ero** gineneko momentu bat. Anjel Lertxundi

Aipatzekoa da pertsonak **ero** deklaratzen dituzten funtzionarioek ez dutela inola ere frogatua sano daudenik. Xabier Olarra

"Eroa" deitzen zioten, **eroen** medikua baitzen. Fernando Rey

Londresko **eroentzako** osasun etxe batek zuen izenaren kontrakzioa. Xabier Olarra

-Hago isilik, **eroa**, hago isilik. Josu Zabaleta

Eroaren gisan gorrotatzen zuen. Koro Navarro

Eroaren gisan sartu zen Henne errabinoaren langelan, arropa zarpailduta, txorimalo biziduna. Koro Navarro

Erotzat hartu nuen mutil hura, gainerako taldekideek hartzen zuten bezala. Joan Mari Irigoien

2 (bestelakoez mintzatuz)

Bere isatsari segika hasten den zakur **eroaren** moduan. Hasier Etxeberria

Haren aurpegi zurbila, haren begi **ero** handiak gogoan zituela. Iñaki Mendiguren

Ispilu horretan, irudi **eroak** ikusten hasi naiz, munstroak, gorpu nazkagarriak, piztia mota beldurgarri guztiak, izaki ankerrak. Josu Zabaleta

Min egin dio begietan koloreen dantza **eroak**. Hasier Etxeberria

Egungo bizitza erritmo **eroak** buruko gaitzak izateko arriskua areagotu egiten du? Berria - Gaiak

Barre **eroak** hartu zuen taldea. Jon Muñoz

Bat-bateko ekintza **eroak** antolatu zituen, etsipenak bakarrik eragin ditzakeen erokeriak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Balentria **ero** batek porrot egin zuenekoa. Anjel Lertxundi

Ihes egin behar **ero** batek hartu ninduen orduan. Josu Zabaleta

Harekin hitz egiteko gogo **ero** bat sartu zitzaidan. Josu Zabaleta

Hil arte iraungo diola Trabukori urre-goseak eta Berdabio inguruak zulatzeko irrika **eroak**. Anjel Lertxundi

Amets **eroak** baztertuz. Karlos Linazasoro

Bazuen begietan halako poz **ero** bat, histeria ezkutu bat, jokaera osoan antzematen zitzaiona. Koro Navarro

Sadiko baten amets **eroenetan** bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neure burua entzun nuen harenganako ene maitemin **ero** eta ordainik gabea aitortzen. Oskar Arana

Nire bihotzaren taupada **eroak**. Alberto Ladron Arana

Eta horra non, bat-batean, lasterka **ero** horretan, nire arbasoak kopetaz zuhaitz adar handi bat jo, eta burezur guztia arraildu. Josu Zabaleta

Tipo atsegina zen, jakina, eta ez zuen inork ageriki higuin, baina ez zen hautagai egokia, ez ezkontzeko ez eta gau **ero** baterako ere. Oskar Arana

Eguraldi **eroa**. Pello Zabala

Egoera geroz eta **eroago** ari da bihurtzen. Josu Zabaleta

Ez zuen abiada **eroa** moteltzen ez bihurgune itxietan ez aldats beheran. Jose Morales

Emakumea eserita zegoen, besoak atzerantz dingilizka, barrezka, hitz egiteko indarrik gabe, berebiziko zoriontasun **eroaren** zamaren azpian unaturik. Jose Morales

Barre-algara faltsuen gehiegikeria **eroetan**. Koro Navarro

Ilunaren belztasuna gaineratu zitzaidan; beheraldi **ero** zurrunbilotsu batean ziruditen irentsiak sentsazio guztiak, arima Hadesean bezala. Koro Navarro

Ez al zen, bada, interpretazioen eldarnio **eroan** apurka-apurka lerratzen ari? Jon Muñoz

Pareta jo eta kabletik zintzilik gelditu zen, dilin-dalan **eroan**, bere baitatik ateratako horma-erlojuaren pendulua balitz bezala. Aingeru Epaltza

Hitzak arrapalada **eroan** ateratzen zitzaizkidan ahotik. Oskar Arana

Mendebaldeko herrialdeek beren artean eta Japoniarekiko duten lehia **ero** hori. Koro Navarro

Gauzarik arruntenak eta ohikoenak -eskutik heldu, musu eman, "Kaixo, aita!" esan- ikaragarriak iruditzen zitzaizkion, beren faltsutasun izugarri, gizagabe eta **eroan**. Jose Morales

Bekatu giro alai **eroan**. Xabier Olarra

Ez zen neskarik pasatzen berak bere oihu **ero** galaiez ekingo ez zionik. Josu Zabaleta

Kanta **ero** bat biraka zebilkion buruan. Lopez de Arana

Musika matematika da, matematika alai jostalaria, matematika **eroa**, musika-noten arteko konbinaketa infinitua izan baitaiteke, ezin zenbatuzkoa. Felipe Juaristi

Logika garbi **ero** horrek aztoratua egoki hura ere: zoriontasuna gezurra baldin bada, izan bitez zorigaitza eta tristura gure egiak, gure eguneroko ogiak. Iñaki Segurola

Zer gertatuko litzateke, konparazio batera, grina **ero** batek jotako gizon maniako batek eraso egingo balie? Pello Lizarralde

Urte **ero** samarra izan da. Berria - Kirola

Horregatik dira zenbait egoera hain **eroak**. Berria - Kultura

Elkarrizketak aurrera jarraitu zuen bizi-bizi, lehentxeago bezalako iruzkin **eroz**, ateraldi zentzugabez, txantxa alaiz eta bufoikeria sasi histrionikoz beterik. Oskar Arana

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ero arriskutsu baten mende nengoen. Anjel Lertxundi

Nini arina zen, Eligio **ero** hutsa. Josu Zabaleta

Mundua mundu denetik hain ugariak diren **ero** nostalgiko halakoak! Anjel Lertxundi

Bost bider dutxatu behar da egunean **ero** lizun hori. Josu Zabaleta

Lotu beharreko **eroa** dela nire nagusia. Patxi Ezkiaga

4 (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

'Bere nahierara' esan dut; zeren borondateari baitagokio auzia, eta ez, logikaren **eroak** erabaki duen bezala, botereari. Koro Navarro

5 (adizlagun gisa)

Eta eri nengoen eta **ero** nengoen, amorioaren gatibu. Joan Mari Irigoien

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Orso Nero handia eta lodia zen, **ero** begiak zituen mataza itxurako bekainen azpian. Pello Lizarralde

Zenbait aldiz entzunak genituen bere oihuak, baina ez Federicorenak bezalako oihuak, **ero** oihuak baizik. Pello Lizarralde

Bizian **ero** aireño bat behar dela halere... poxiño bat, artetan bederen. Menane Oxandabaratz

Txikitatik ikusi zitzaion besteek ez bezalako airea zuela, besteek ez bezalako alaitasuna... besteek ez bezalako **ero**-planta. Xabier Etxabe

Bera hasi zen, orduan, **ero** keinuak egiten eta ni beldurtu egin nintzen eta hanka egin nuen. Pello Lizarralde

Ero-imintzioak egin nizkion uxatzeko, jiratu egin nintzen gero: non dago turkiarra? Fernando Rey

Gainera, ni ezin ibiliko nintzen beti haren **ero** ateraldiak eta nire anaia gizagaixoarenak entzuten. Pello Lizarralde

Rothen pertsonaiek ere kaosaren izuz eta **ero**-atorra jantzi beharraren etsipenez bizi dute inperioaren hondamen iragarria. Anjel Lertxundi

Hiru buru zituen; hiru begi-pare biribil, **ero**-itxurakoak. Iñaki Mendiguren

Zakurrek, pertsonek bezala, jarduera makurrak izan litzakete: beldurra, gorrotoa, oldarkeria, **ero**-boladak. Gotzon Garate

Ene!, badirudi **ero**-boladaren batek jo dituela horrelako zerbait egiteko. Mirentxu Larrañaga

Ero-fama uzteko bezain gaiztoa ez dela izan nire bizitza, horixe adierazi nahi nuke. Patxi Ezkiaga

Aski ezagunak ditut bai horien **ero**-lilurak. Patxi Ezkiaga

Ukabilaz beste eskua jo zuen, begietan ohiko **ero**-distira zuela. Iñaki Mendiguren

Langileak, burumakur, jasaniko **ero**-bulta izugarriaz hormatuak bailiran. Itxaro Borda

Egia da azaldu daitekeela, azaldu, nire **ero** ordua izan ez banuen behinik behin. Josu Zabaleta

Ba ote da -galdegiten zien **ero** -medikuei- osasunaren, gaztetasunaren neurosirik? Iñaki Segurola

Ero koadrila galanta! esan zuen norbaitek. Xabier Montoia

Ero -hiri batean bizi ziren triestearrak eta, han denbora asko eginda, agian neu ere halakoxea bihurtuko nintzen. Anjel Lertxundi

7 *behi ero* 'entzefalopatia espongiforme' izeneko gaitzak jotako behia.

Nafarroan **'behi ero'** bat hil dute, Errioxatik ekarria. Iñigo Aranbarri

Behi eroak eta hegazti gripea «eredu intentsiboaren» ondorio direla ohartarazi du. Berria - Ekonomia

Orain arte, **behi eroen** bederatzi kasu agertu dira Aragoin. Berria - Gaiak

Milioika behi hil zituzten Erresuma Batuan 1990ko hamarkadan **behi eroen** gaitza dela eta. Berria - Gaiak

Gauzak arreta gutxiagoz tratatzen ditugu-eta, gaitzak datoz ondotik: **behi eroak**, ardien *scrapie* edo dardarizoa... Edorta Agirre

Ez dute kalitatezko ekoizpena bultzatu, eta **behi eroak**, dioxinak eta horrelakoak etorri dira. Berria - Ekonomia

Ez dira garai samurrak abelazkuntzarako: **behi eroen** auzia, pentsu kutsatuak, sukar aftosoa... Patxi Iturritegi

Europan bizi izandako **behi-eroen** krisiak horrelako sarearen «beharra» agerian jarri zuela azapimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

Gogoratu **behi eroen** eskandalua, esate baterako. Berria - Gaiak

8 *gurpil ero*

Alferrik egin omen nuen korrika emakumearen bila, nik neuk martxan jarria nuen heriotzaren **gurpil eroa** geratu nahirik. Joxean Agirre

Denborari erronka jotzea ez da ohikoa negozio honetan, emaitzen uholdeak gainezka egiten baitu zaleen pazientzia, eta **gurpil eroan** murgiltzen dira kirol proiektuak. Berria - Kirola

Lehiakorra izateko merkatura inolako neurririk gabe jotzea izan da futbolaren bekatu nagusia, eta emaitzek agintzen dutenez, galtzaileak salerosketen **gurpil eroan** sartu dira. Berria - Harian

Coney Hondartzaz gogoratzen zen, han ibiliko baitziren bere adiskideak neskekin **Gurpil Eroan** bunbuluka edo Mamuaren Trenean ziztu bizian eskeletoen tunelera sartzen. Koro Navarro

9 *eroarena egin*

Oinezko talde mozorrotuak, **eroarena egiten**, dantzan eta kantuan. Josu Zabaleta

Eroarena egiten ibili nintzen bazkari osoan, harro-harro eta errebaleko mutilak bezain gaizto. Koro Navarro

Orain ere ari al zara **eroarena egiten**? Bernardo Atxaga

Funtsean ez nagoela eromenak joa, **eroarena egiten** ari baino. Juan Garzia

Apustu egingo nuke **eroarena eginez** hartu duzula min. Juan Kruz Igerabide

Gauean mendi aldean **eroarena egiten** ibiltzeagatik. Iban Zaldua

10 *ero-ero adlag*

Ero-ero osatu zuen ibilbidea, arrisku handiak hartuz. Berria - Kirola

Neska batez **ero-ero** maitemindurik, zorionezko estasi gisako batean ezkondu zen harekin. Josu Zabaleta

Pozez kabitu ezinik ospatu zuen gola Kovacevicek, **ero-ero** korrika. Berria - Kirola

Ez du **ero-ero** jardungo, nekez jarriko du bere sailkapena arriskuan segundo gutxi batzuk irabaztearen truke. Berria - Kirola

Ez diezue ezer zor, zuek zeuengatik zaudete munduan eta ez eurengatik; **ero-ero** eginda egongo zinatekete kezkatuko bazinete. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Txima gorriak **ero-ero** astinduak zituen Maxek. Jon Muñoz

Urzaizek lortu zuen 2-0ekoa, 6. minutuan, eta Vila-realek erasora jo zuen **ero-ero**. Berria - Kirola

11 *ero-eroan adlag* ero-ero.

Ez ziren alferrik eta **ero-eroan** esanak izan hitz haiek. Patxi Ezkiaga

Jauzi batez zutitu eta ihesi joan zen **ero-eroan**, kapelarik gabe, eskuak odoletan. Karlos Zabala

Zure eza gogoratuz **ero-eroan** etxe zuri handi bat eraiki nuen. Berria - Kultura

Orduan, jauzi batez zutitu eta ihesi joan zen **ero-eroan**, kapelarik gabe, eskuak odoletan. Karlos Zabala

12 *ero etxe* ik **eroetxe**.

13 *ero moduan (39 agerraldi, 22 liburu eta 9 artikulutan)*

Ero moduan hasi da baserrian gora eta behera, zer aurkituko, non urrerik bilatuko. Anjel Lertxundi

Ero moduan ibili zen, astinaldi bortitzenak eginez eta isildu ezin zituen aienez betea. Fernando Morillo

Ero moduan irriz ari ziren, irriari eutsi ezinik. Fernando Rey

Ero moduan mugitzen zuen bere eskuargia, altzarietako kajoiak etengabe irekiz eta itxiz. Aitor Arana

Ero moduan egiten zuten oihu, ez nuke jakinen zergatik, biluztasun debekatuagatik apika. Fernando Rey

Bihotza **ero moduan** hasi zitzaidan taupaka. Alberto Ladron Arana

Saget andereñoaren laguntzaz, hiruren artean, haren gelaraino bultzatu zuten, eta han giltzapetu, giltzari bi bira emanez, **ero moduan** aurre egin bazien ere. Karlos Zabala

Edo itsasoko ekaitz betean, Gaztelugatxeko ermita ondoan larrua jotzen, haizeak kanpaiari **ero moduan** eragiten zion bitartean. Patxi Zubizarreta

Zenbaitek, leherketaren instantean abioiari zuzen begiratu ziotelako zeharo itsututa, **ero moduan** botatzen zuten beren burua sutara. Pablo Sastre

Hasieran irribarre gozo batek hartu dio bisaia, baina gero masailetako bi hezurren juntura **ero moduan** mugitzen hasi zaio. Pako Aristi

Handik ordu erdi batera edo, itzultzen ikusi nuen, motorraren gainean mantso-mantso, argia puskatuta, eta bera lokatzez beterik eta busti-busti egina, **ero moduan** oihuka: [...]. Juan Kruz Igerabide

Halako batean Johnny Hill sartu zen gelan, lasterka **ero moduan**. Fernando Rey

Niri begira zegoen, baina ez zen etortzen laguntzera; barrez jarraitzen zuen, **ero moduan**. Juan Kruz Igerabide

12 *eroaren moduan (14 agerraldi, 16 liburu eta 2 artikulutan)*

'Eroaren moduan ibili gara zure bila, esango du Axelek, 'sendatu behar gaituen laguna gaixotuko zaigun beldurrez'. Joseba Sarrionandia

Handik pixka batera ezin nuen gehiago: burua beso baten gainean jarri eta **eroaren moduan** hasi naiz negarrez. Josu Zabaleta

Katastrofeen artean dabilen Buster Keatoni begira geratuko zara, desastrea dela eta **eroaren moduan** aurrera doala beti katastrofeak ugalduz. Joseba Sarrionandia

Guk errepideko arauak betetzen ditugu, baina gainontzekoek ez, jendea **eroaren moduan** ibiltzen da Gu ere barrez hasten ginen; nik Uili kilimak egiten nizkion, eta, besazpian eta hanketan egiten nizkionean, Uil biribildu egiten zen, eta burusiaren azpian gorde, **eroaren moduan** barre eginez. Berria - Euskal Herria

Artegintza benetakoa zer den eta zer ez den erabaki ezinik ibiltzen naiz **eroaren moduan**. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amets ero (3); **artaburu ero** (3); **atso ero** (3); **behar ero** (3); **behi ero** (5); **bezalako ero** (3); **dantza ero** (4); **du ero** (5); **du ero baten** (3); **duen ero** (3); **edo ero** (6); **erdi ero** (3); **ero alaena** (3); **ero amorratu** (3); **ero bat** (64); **ero bat bezala** (3); **ero bat da** (3); **ero batean** (11); **ero batek** (19); **ero batekin** (4); **ero baten** (61); **ero baten gisara** (5); **ero baten moduan** (18); **ero baten pare** (7); **ero batena** (4); **ero bati** (3); **ero batzuek** (4); **ero begiak** (4); **ero bezain** (3); **ero edo** (6); **ero egiten** (3); **ero ero** (23); **ero eroan** (4); **ero eta** (26); **ero eta bero** (4); **ero fama** (3); **ero haiek** (4); **ero haien** (3); **ero haren** (4); **ero hark** (4); **ero hau** (4); **ero hiria** (12); **ero hori** (8); **ero horiek** (4); **ero horrek** (11); **ero horrekin** (4); **ero horretan** (5); **ero hura** (8); **ero idazleekin** (4); **ero moduan** (38); **ero moduan hasi** (3); **ero ni** (13); **ero nik** (4); **ero samar** (3); **ero samarra** (13); **ero samarra izan** (3); **ero samarra zen** (3); **ero zerrenda** (4); **eta ero** (29); **gau ero** (8); **haren ero** (3); **inoren ero** (19); **inoren ero ni** (13); **inoren ero nik** (4); **mundu ero** (3); **urte ero** (4); **zahar ero** (5); **zahar ero bat** (3); **zaldi ero** (9); **zaldi ero idazleekin** (4); **zen ero** (4); **zuen ero** (3)

ahalegin eroan (4); **amets eroak** (6); **anaia eroa** (3); **aski eroa** (3); **bai eroak** (3); **baina eroa** (3); **bat eroa** (4); **behi eroa** (3); **behi eroak** (16); **bezain eroa** (6); **bezain eroak** (3); **da rua eroa** (11); **da rua eroak** (6); **da rua eroaren** (3); **da rua eroari** (4); **edo eroa** (3); **eginiko gogoeta eroak** (3); **eguraldi eroa** (3); **ere eroa** (3); **ero eroan** (4); **eroa baino** (5); **eroa baizik** (4); **eroa behar** (3); **eroa bezala** (21); **eroa da** (13); **eroa deituriko** (3); **eroa dela** (5); **eroa eta** (12); **eroa ez** (4); **eroa izan** (11); **eroa izan zen** (4);

eroa izango (3); **eroa zela** (4); **eroa zen** (4); **eroak bere** (3); **eroak bezala** (14); **eroak direla** (3); **eroak eta** (3); **eroak ez** (3); **eroak izan** (4); **eroan hasi** (3); **eroaren gisan** (11); **eroaren moduan** (14); **eroaren moduan hasi** (3); **eroaren pare** (5); **eroarena egiten** (5); **eta eroa** (12); **eta eroa bezala** (5); **eta eroago** (4); **eta eroak** (6); **eta eroaren** (8); **eta eroaren moduan** (3); **ez naiz eroa** (3); **filosofo eroa** (3); **gau eroa** (4); **gau eroa deituriko** (3); **gogoeta eroak** (4); **gurpil eroan** (3); **hain eroa** (3); **hau mundu eroa** (5); **hori eroa** (3); **ideia eroak** (4); **kantu eroa** (3); **mundu eroa** (5); **naiz eroa** (3); **ni eroa** (3); **rua eroa** (11); **rua eroak** (6); **zaldi eroak** (3); **zaldi eroaren** (3); **zen eroa** (4)

behi eroen (46); **behi eroen gaitza** (19); **behi eroen gaitzak** (6); **behi eroen gaitzaren** (9); **edo behi eroen** (5); **eroen gaitzaren giza** (5); **eroen moduan** (10); **eroren bat** (3); **eroren batek** (3); **erotzat eta** (3); **erotzat hartu** (11); **erotzat hartuko** (4); **erotzat hartzen** (8); **erotzat jotzen** (3); **eta erotzat** (3)

---

eroaldi *(47 agerraldi, 30 liburu eta 4 artikulutan)* **1** *iz* erotasun aldia. ik **zoraldi**.

Eroaldiari negarraldiak txanda hartzen ziolarik, oheratzen laguntzen zuen, kopeta oihal busti batez freskatu ondoan, eskuak hartzen zizkion, eta emeki mintzatzen loak hartu arte. Elena Touyarou

Gizakia, harroaldi, itsualdi, pozaldi, **eroaldi**, urrialdi, itxuraldi, zintzoaldi... eta beste hutsaldi ugariz betetako zorro sintetikoa baita. Patziku Perurena

Tokiko 26 gaztek eskainiko dute ikusgarri berezi bat, dantza-kantu-antzerki nahasketa bat, dena ironia, kitzika, **eroaldia**, arralleria. Herria

Une izugarri honetan, estatuen, herrien eta ongi unibertsalaren ospearen izenean, eromena nagusitu da; une honetan gizonek ez dirudite gizon: [...] izualdi eta **eroaldi** honetan, ideiarik gabeko ontasun txiroa ez da, ordea, desagertu. Felipe Juaristi

Bigarren fase batean, finantzen eskutik frenesi edo **eroaldia** dator 2000. urtean eztanda egin zuen burbuila teknologikoa bezalakoa. Berria - Ekonomia

Esperantza dut zure xarma ederrok izatea Hamleten **eroaldiaren** zorioneko kausa. Juan Garzia

Nola bukatuko genuen egunen batean **eroaldi** batek jotzen bazuen? Pello Lizarralde

Gogoan hartu behar da, gainera, Federicok berak ekar zezakeen arriskua, hitzen gudan zapuztuz gero, **eroaldiak** jo eta etxeari su eman baitziezaiokeen. Pello Lizarralde

Nik sukaldean aritu behar izaten nian, sukaldean, gaixoa zaintzen eta maindireak aldatzen eta aitari eusten **eroaldiak** jotzen zuenetan. Koro Navarro

Beste bat **eroaldiak** eman diona, pentsatuko zuten. Iñaki Zabaleta

Eroaldiak emanda bezala zeuzkan eskuak burdinari itsatsirik. Irene Aldasoro

Hautagaiei jakinarazi die **eroaldi** batek hartu duela, eta sendatutakoan berriro ere jauregira deituko dituela. Patxi Zubizarreta

Nire **eroaldian** ezkutaritzat hartu nuelako. Patxi Ezkiaga

Laurehun bat urte dira **eroaldi** hura jazo zenetik. Anjel Lertxundi

Zenbait minututako **eroaldia** [...], hogeita bi hilabete ernari eta bi urte eta erdi umezain. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azalpen natural eta erraza zera izango zuan, bat-bateko desira batek, grina batek, Krisztinaganako sentipen suhar eta **eroaldiko** batek hi mendean hartu izana. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Editoreak "nekea" eta **"eroaldi** iragankor baten mendean egon izana" alegatu zituen egun batzuk geroago, ekintzaren arrazoiak azaldu behar izan zituenean.Azkenean, baliteke **eroaldi** arin bat izana. Jon Alonso

Bazirudien **eroaldi** bat-batekoa piztu zutela nire hitz apur haiek epaiketa hurbiletik eta bertatik jarraitzen zuten guztien artean. Hasier Etxeberria

Grina hori lanarekiko maitasuna da, lanari buruzko **eroaldi** sutsua. Iñaki Heras

Eroaldi berriren batek hartu zuela uste zuten noski-edo hiru haiek, hau entzun ziotenean. Patxi Ezkiaga

Legez kanpoko galdeketak zigortzeko Kode Penalean egindako erreforma «aurreko gobernuak bizitza politikoan sartutako **eroaldi** kolektibo moduko bat» izan zela iritzi zion Eusko Jaurlaritzako lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Emakumeak erailtzen ari dira, baina ez gizonen baten bat-bateko **eroaldi** batek eraginda. Berria - Euskal Herria

Hasierako **eroaldi** horren ondotik, tripaz gora jarri nintzen sofan, gorputz erdia zintzilik, hankak zabal eta luze, pubisa harro eta ausart. Karlos Zabala

Zintzotasunezko **eroaldi** batean, Mertxerena ere kontatu nion. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eroaldi bat (3); **eroaldi batek** (5); **eta eroaldi** (3)

---

eroale *(20 agerraldi, 12 liburu eta 2 artikulutan)* **1** *izond/iz* eramailea; eskuarki elektrizitateari edo beroari igarotzen uzten diona.

Ez zegoen golde kurboaren **eroale** indartsurik, ez inork sororik burdinaz harrotzen zekien, ez sastrakarik lurperatzen, ez zuhaitz garaien adarrik aihotzez inausten. Xabier Amuriza

Habsburgotarren monarkia katolikoak mendeko ez katolikoak jazartzeari utzi zion, eta haren mendeko serbiar kristau ortodoxoak [...] psikologikoki bitarteko **eroale** bihurtu ziren, beraien bidez sartu zelarik Mendebalde modernoaren kultura serbiar herrian. Iñaki Mendiguren

Erraz ikusten da, ordea, oro harrezko adigai ororen **eroalea** dela, eta beraz, adigai transzendentalena ere bai. Ibon Uribarri

Beroaren **eroale** ona. Koldo Zuazo

Sare elektriko normal batean, **eroalearen** erresistentzia gainditzen galtzen da energia asko. Irene Aldasoro

Zaila litzateke, ordea, ohiko korronte mota bidaltzea (elektroi fluxu bat) nerbio-zuntzean zehar, zeren nerbio-zuntza, gorputzeko gainerako ehun gehienak bezala, ez baita **eroale** ona. Irene Aldasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erosketak egiteko ere ez zen hirira joaten eta, hilero-hilero, **eroale** jakin baten bitartez, Ramires-Araujo Lda. enpresako gutun-azal betea jasotzen zuen, erretiro pentsioaren kariaz. Bego Montorio

Zer egiten duen [tximistorratak]? Tximista harrapatu eta bildu, gero **eroale** metalikoa medio, lurpera edo uretara lotuta dagoenez, han sartu eta lurpetu ekaitzaren indar hori, kalterik ez dezan egin. Erromatar Inperioaren lehen hiru mendeetan erlijio-eraginen **eroale** aktiborik nabarienak mugetako goarnizio militarrak izan ziren. Pello Zabala

Sardinian eta Zipren, geroago egin dira halako saioak, **eroale** heterozigotoak ezagutu ez ezik eritasunaren jaio aurretiko diagnostikoa ere egin zitekeenean. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Guztira hamaika txinga **eroale** ariko dira aurrera eta atzera, bihar, Berako (Nafarroa) kiroldegiaren aitzinean, arratsaldeko 7:00etan. Berria - Kirola

Hori omnipresentzia baita, Jainkoarena eta eter argi-**eroalearena** baizik ez den ezaugarria. Xabier Olarra

Horretarako baldintza bakarra Idazlearen beraren intelektoa -zeina argi-**eroale**, gudu-zelai, itsas-argi edo entzima-multzo baten antzera imajinatzen ahal baitzen, nahi erara-izanik. Jon Alonso

4 *hari eroale* *irud/hed*

Taularatu dituen esketx guztien arteko **hari eroalea** Europako Batasunean gertatzen diren kontrasteak, korapilo burokratikoak eta herri nagusien arteko lehiak izan direlako. Berria - Kultura

Agian hori besterik ez zara: desagertutako pertsona baten keinua katalizatzen duen **hari eroalea**, keinuen esentzia galdara batetik bestera daraman alanbikeko hodi mehea. Harkaitz Cano

---

eroan, eroaten *(841 agerraldi, 96 liburu eta 110 artikulutan)* **1** du *ad* eraman.

Abstemioen Ligakoa izateagatik **eroan** hinduten komisaldegira? Josu Landa

Sarreran bertan 20-25 polizia zeuden, eta ni **eroan** ninduenak burua jaitsiarazi eta denen artean pasarazi ninduen. Berria - Euskal Herria

Alemanek harrapatu, frankistei eskura eman, horiek lehenik Madrilera **eroan** eta gero Bartzelonara, han epaitzeko, eta tiro! Eta hara Companys laguna hilik, 1940ko urriaren 15ean. Edorta Jimenez

Jaungoikoak **eroan** ninduan hemetik eta Jaungoikoak ekarri nau ostera hona. Juan Luis Zabala

Poliziek Parisera **eroan** zuten Xarles, jada hilotz. Itxaro Borda

Eurek ere tren geltokitik dutxetara **eroan** ei zituzten. Urtzi Urrutikoetxea

Ohe biko gela batera **eroan** zituzten. Xabier Montoia

Han joan-etorrietan sarrien ibiltzen zena nor-eta Zeferina, bere arrainak harantz eta bere arrautzak honantz, joan eta ekarri, etorri eta **eroan**. Edorta Jimenez

Trenak **eroan** zaitu ostera. Koldo Izagirre

Azken batean -erantzun zidakeen Kruzalegik-, ez ziren ba arrantzaleak itsasoak **eroan** zituenak? **Eroan**, bai, ze gorpuak ez ziren inoiz berreskuratu. Edorta Jimenez

Sukar ustelak **eroan** ditu. Edorta Jimenez

-Císcar horrena konponduta dagoela ematen du, ezta? -baikortasunez esan zuen, España ontzi itzela hondora **eroan** zuen haize boladak gure beste buruhausteak **eroan** beharko balitu moduan. Edorta Jimenez

-Argazki hauexek **eroan** nahi nituzke -diotsot emakumeari, niretzako cd batera kopia ditzan. Edorta Jimenez

Hik nahi huen emakumea neuk **eroan** nian. Edorta Jimenez

Egun horretan, ostegunean, Alberto Aita Preso **eroan** zutenetik astebete pasatu da. Edorta Jimenez

Kosheren cadillac arrosaren irudi distiratsuak **eroan** zuen telebistan geldigabe agertzen zen lehendakariaren anderearen kolore bereko jantzira. Itxaro Borda

Porlanek berarekin **eroan** ninduen, Ukrainako kultur-etxera. Edorta Jimenez

Gorpu haren zama lepo gainean inork **eroan** behar izatekotan, neuk. Edorta Jimenez

Eta hala bazen, zertan utzi zuen han, aldean **eroan** beharrean? Edorta Jimenez

Haiek denak, bistan da, besteen harrapakin eta mozkin gelditu ziren, euren moztasun fatalek eragotziak, naturak espezie hura akabura **eroan** arte. Xabier Amuriza

Atoan **eroan** zuten Ritz hotelera, bertan baitzegoen milizia katalanen ospitalea. Lutxo Egia

Aldundiak oztopoak jarriko ditu Fertiberiak Sefanitro **eroan** ez dezan. Berria - Ekonomia

Burmanek freskura **eroan** du Berlinera Berria - Kultura

2 (forma jokatuak)

Hantxe **neroan** nik nire nabigazio-tresnen kutxatxoa. Edorta Jimenez

Nire geroa aldean **neroatzan** liburuaren eta jakanarruaren babespean jarri nuela uste dut. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahora eroan (3); **batera eroan** (6); **batera eroango** (3); **batzuk eroan** (3); **ere eroan** (4); **ero eroan** (4); **eroan ahal** (5); **eroan behar** (14); **eroan beharko** (4); **eroan dituzte** (3); **eroan du** (4); **eroan eta** (10); **eroan ez** (4); **eroan gintuen** (4); **eroan gintuzten** (5); **eroan hasi** (3); **eroan nahi** (3); **eroan nazazu** (3); **eroan ninduen** (4); **eroan ninduten** (4); **eroan nuen** (7); **eroan zenuen** (3); **eroan zituen** (10); **eroan zituztela** (3); **eroan zituzten** (7); **eroan zuen** (26); **eroan zuten** (11); **eroango gintuen** (5); **eroango haut** (3); **eroango zaitu** (4); **eroango zaitut** (4); **eroango zituen** (5); **eroango zuen** (4); **eta eroan** (5); **etxera eroan** (6); **gurpil eroan** (3); **neuk eroango** (4); **nora eroan** (4)

---

eroangaitz *izond* eramangaitza.

Itxurak egiten ibili beharra, gezurrak **eroangaitzak** zitzaizkien. Xabier Montoia

---

eroangarri *izond* eramangarria.

Gizakiak kemen disolbatzailea du irudika daitekeen sufrimendurik basatiena edo pentsa daitekeen oinazerik sofistikatuena **eroangarri** bihurtzeko. Anjel Lertxundi

Osterantzekoa **eroangarria** da erabat. Josu Landa

---

eroankor *izond* eramankorra.

Adiskidetasunetik etsaitasunerako aldaketak kultur atalase **eroankor** hori (limen) fronte militar banatzaile (limes) bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsal baten inguru **eroankorrean** zehar beren bidea egiten duten gizarte-mugimenduak, egia esan, horizontalak eta bertikalak dira. Iñaki Mendiguren

Aurki, hain **eroankor** nola uso-ama bere biki urrezkoak oskoletik irtetean, mintzultasun itunera zaigu atzera bilduko. Juan Garzia

Aurrez sekula ez zen hain eremu handia hain **eroankor** izan giza harremanen forma guztietarako. Iñaki Mendiguren

---

eroankortasun *iz* eramankortasuna.

Estatu unibertsalen **eroankortasuna**. Iñaki Mendiguren

Azken honek jada lehortua zegoen "Bigarren Mediterraneoa-ren" lekua hartu eta **eroankortasuna** heredatua zuen, baina lehen han izan zela erakusten zuen zatika iraun izanak Kaspiar itsasoan, Araleko itsasoan eta Balkash aintziran. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsalak, ordena eta uniformetasuna ezartzean, **eroankortasun** handiko bitarteko bat ematen du, ez bakarrik geografikoki aurrez parroki estatu banatu izandakoen artean, baita sozialki ere gizarteko klase desberdinen artean. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsalen bi ezaugarri orokorren - **eroankortasunaren** eta bakearen- ondorioak aztertu ostean, estatu horiek berariaz sortu eta mantentzen dituzten [...] erakunde zehatz partikularrek beren onuradunei emandako zerbitzuen azterketa egiten jarrai genezake orain. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsalen **"eroankortasunaren"** argibideak historikoki nahikoa ezagutzen dugun beste edozein adibidetatik atera daitezke. Iñaki Mendiguren

Garaiko espiritu nagusi honek **"eroankortasunez"** hornitzen ditu estatu unibertsalak sortarazitako behin-behineko erakunde berri hauek. Iñaki Mendiguren

---

eroapen *(54 agerraldi, 23 liburutan; ETCn 533 agerraldi)* **1** *iz* pairamena, egonarria.

Hobe **eroapena** adorea baino, nor bere buruaren jabe izatea hiriak menperatzea baino. Elizen arteko biblia

Lilura apur bat hastapenean, ohitura gero eta, azkenean, **eroapena**. Hasier Etxeberria

Haiek irakatsi ziguten nekea, **eroapena** eta nolabaiteko zuhurtzia. Juan Garzia

Baina **eroapena** harrokeria baino hobea denez, irain guztiei entzungor egin zien eta, ezertan lur jo edo asaldatu gabe, eskerrak ematen zizkion Jaunari denagatik. Askoren artean

Hitz horiei buruz debozio handiarekin predikatuz, anaia guztiak indartzen eta bultzatzen zituen [...] munduko sufrimendu garaian **eroapena** eta ugari-aldian neurritasuna izatera. Askoren artean

Ez hitzen zirikadak, ez kateen nekeak, ez zioten **eroapena** galarazi. Askoren artean

Horra iritsirik, Txitxikoven **eroapenak** hondoa jo zuen. Jose Morales

Nire jarrera hura garaipenari egundaino biderik zabaldu nahi ez dion baten **eroapenarekin** (konplexuz betetako baten ezinarekin?) nahasten zuela iruditzen zitzaidan. Anjel Lertxundi

Zorionekoa lagun hurkoa bere ahulezian **eroapenez** hartzen duena. Askoren artean

Mundu honetan **eroapenez** jasan nauen bakarra bera izan delako. Aitor Arana

Beti agertuko da **eroapenez** eta adorez beteta, bai auziekin sortzen ziren gorabeheretan, eta baita diru-urrialdi latzenetan ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Adorez eta **eroapenez** eragozpen handienak gainditzen dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jaungoikoaren pazientziak penitentziara gonbidatzen ditu gaiztoak eta, aldi berean, zigorrarekin zailtzen ditu zintzoak **eroapenean**. Imanol Unzurrunzaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Pentsatzekoa baita hildakoek **eroapen** eta egonarri handikoak izan behar dutela, eta ez dituela inoiz mendeku grinak menpean hartu behar. Juan Luis Zabala

Eroapen handia agertzen zuen gehienean. Karlos Zabala

Nik **eroapen** handiz jasan omen nuen besarkada, gizasemeok emakumeen beroaldi edo flakezia horiek jasaten ditugun eran. Joxean Agirre

Munduko zenbait aldetan irainka hartzen zituzten, gizon mespretxagarri eta ezezagun bezala; baina Kristoren Ebanjelioaren egiazko maitasunak **eroapen** handiko egiten zituen. Askoren artean

Eroapen handikoak zentzu ona ugari, haserrekorrak zentzugabekeria nabari. Elizen arteko biblia

Nik **eroapen** osoz irentsi behar nuen gaixoen taldean egotea zegokidala. Anjel Lertxundi

Maiteminduek berritan erakusten duten **eroapen** itsuarekin jarraitzen ziolako. Joxean Agirre

3 (hitz elkartuetan)

Astintzen saiatu nintzen, eurengandik askatzen, gainetik kentzen, gutxienez han bertan ezabatzen, kanporatzen, **eroapen** apur bat ematera. Urtzi Urrutikoetxea

Morrontza hutsa da hori, etxe handi bat bakar-bakarrik egitea bezala, iraupen edo, nahiago bada, **eroapen** kontua. Joxean Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eroapen handikoak (3); **eroapen handiz** (3); **eroapena eta** (3)

---

eroarazi, eroaraz, eroarazten du *ad* erotzera behartu.

Eroarazten nuen, jeiki orduko, ni eleketan ari, eta hari pitzikan ari nintzen, eta **eroarazten** nuen hola. Menane Oxandabaratz

Gaur **eroarazi** behar dut. Eneko Bidegain

---

eroate *iz* eramatea.

Elikagaien **eroate**, pilatze eta partitze izeneko etapa antzu eta garesti hauetan (hori baita azalera handien-eta eginkizun bakarra) ez da ezer ere ekoizten; areago, funtsez, ez da deus agitzen; gauzak bestela banatzean sortzen da balio erantsia, prezio garestiagoa. Edorta Agirre

---

eroatearren *adlag* eroateko.

Jaka barik, alkondara hutsez jantzita zegoen eta pistola **eroatearren** erabilitako narruzko hedeak antzematen zitzaizkion besape-sorbaldetan. Josu Landa

---

eroetxe *(107 agerraldi, 45 liburu eta 12 artikulutan; orobat* ***ero-etxe*** *10 agerraldi, 6 liburutan)* *iz* zoroan zaintzeko etxea. ik **zoroetxe**.

Eroetxeko zuzendariek eta emakume zaintzaileek neska gaixoei arropa eta jana ebasten zizkieten. Gotzon Garate

Bere historia etengabe errepikatzeagatik edo, gaixotzen hasi zen Edgar, eta horrexegatik sartu zuen Marchepiedek **eroetxe** batean. Joxan Elosegi

Errusiar funtzionarioak beldur ziren istiluak sortuko ote zituen, eta **eroetxera** bidali zuten. Koro Navarro

Gein **eroetxera** eraman zuten eta bere egauzak erematean salduak izan ziren. Gotzon Garate

Inori kontatuko banio, **eroetxean** sartzeko moduan nagoela pentsatuko luke. Patxi Iturritegi

Artean ez genekien jadanik **eroetxean** zegoenik. Iban Zaldua

Ez dut Juanek bezala **eroetxean** bukatu nahi. Bernardo Atxaga

Gauzak ondo zeuden zeuden horretan: idazlea bere zerraldoan eta hiltzailea **eroetxean**. Joxean Agirre

Eroetxe batetik ihes egin nuenetik bizi naiz kalean! Berria - Kultura

Begira piztien gizona, **eroetxetik** irtenda. Josu Zabaleta

Eroetxean hil zen neska errusiar baten pasaportea lortu zuen. Felipe Juaristi

Egoera ezin tamalgarriagoan topatu zuten eta, kontatuaren arabera, **eroetxea** baino areago infernua zirudien leku lohi eta beldurgarri batean. Xabier Montoia

Sarri askotan autonomia faltarekin lotu izan dira guztiz buruko gaitzak, **eroetxeekin**. Berria - Harian

Batzuetan pentsatzen dut Alemania **eroetxe** bihurtu dela. Alberto Ladron Arana

Gogoan hartzen du bertan Benito Pérez Galdós-ek XIX. mende bukaeran Madrileko **eroetxe** eredugarri delakoaz idatzi zuena: [...]. Bernardo Atxaga

Donatien Sade, Sadeko Markesa, Parisen jaio zen 1740an, feudoa Proventzan zuen familia noble batean, eta Charentongo kartzela- **eroetxean** hil 1814an. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eroetxe batean (10); **eroetxe batetik** (4); **eroetxea da** (4); **eroetxea da hau** (3); **eroetxean hil** (5); **eroetxean hil zen** (3); **eroetxera eraman** (3); **eroetxetik atera** (5); **eroetxetik atera berri** (3)

---

eroetxeratze *iz*

Harreman-joko batek egin du bera ahalezkoa agertu den garaian eta berak mugatu du kontzeptuen, azterketen eta frogapenen ekonomian aldaketa handi hori, tartean ospitaleratzeak daudela, **eroetxeratzeak**, gizarte-baztertzeen baldintzak eta prozedurak, jurisprudentziaren arauak, [...]. Xabier Arregi

---

erogailu *iz adkor* erotzeko gailua.

D'ailleurs, jakizu ni Dan eta taldeko beste neska batekin, Adelarekin, geratu nintzela, **erogailu** horietara igo gabe. Patxi Zubizarreta

---

erogarri *izond* erotzen duena.

Berak laztan **erogarri** horiekin jarraitzen du. Juan Martin Elexpuru

Nekromantziaren eta belar **erogarrien** zientziaren jabe omen zen. Juan Garzia

Ezin eutsizko premia sentitzen nuen berriro hura eskuetan hartzeko, ukitzeko, ukipen hotz, labain, haserregarri, **erogarri**, zoragarri hark berriro gaixotzeraino suhar nintzan. Josu Zabaleta

Orain, hau idazten dudan bitartean, zin eginen nuke Angelak nahita luzatu zuela une **erogarri** hura. Alberto Ladron Arana

Hilde anderearen lurrin **erogarria**, kasu, bere piezak mugitzera aurrerantz makurtzen zen aldiro olatu goxo bat bezala oldartzen zitzaidana. Alberto Ladron Arana

Milaka pentsamenduk eraso zidaten aldi berean, nire burua infernu **erogarria** bihurtuz. Alberto Ladron Arana

Erritmoa **erogarria** zen. Juan Martin Elexpuru

Parisko karriketako harat-honat **erogarrian** berriro barneratzen nintzen bitartean. Alberto Ladron Arana

Minutu labur haiek ulergaitzak ziren berarentzat, bazirudien denboratik eta beraren bizitzatik kanpo zeudela, eta exekuzioa bera, bere ezohikotasun ikaragarriarekin, bere zentzugabetasun **erogarriarekin**, ezbehar arina iruditzen zitzaion, bisitaren unea baino eramangarriagoa. Jose Morales

Ezagutzen ez genituen atsegin **erogarrien** zantzuek esna ere amets eragiten zigutela. Txillardegi

Ikus-entzunezkoen teknologiaren abiada gero eta **erogarriagoaren** laguntzaz. Berria - Kultura

---

erogeno *izond* sentipen erotikoak eragiten dituena.

Badira laztan edo igurtzi batzuk bero-bero jartzen gaituztenak; badira gune **erogenoak**, kitzikapen sexuala gehiago edo gutxiago eragiten dutenak. Luis Elberdin

Nik ez nien aurkitzen azterketa zinetikooi inolako alderdi **erogenorik**. Juan Garzia

Gorputzeko alde sentikorrenak, plazer handiena eragiten digutenak eta kitzikapen sexuala martxan jartzen dutenak dira alde **erogenoak**. Luis Elberdin

Beren parte sentikorrena, **erogenoena**, kitzikagarriena eta benetan bero jartzen dituena laztanduz, hau da, klitoria. Luis Elberdin

Emakumeak masturbatzen denean zer egiten duen jakiteak informazio asko emango digu estimulazio moduen ahalmen **erogenoari** buruz. Luis Elberdin

---

erokeria *(360 agerraldi, 114 liburu eta 62 artikulutan)* **1** *iz* eroari dagokion egite gaitzesgarria; zentzugabekeria. ik **zorakeria**.

Zorakeria da, "justuagoak" garelako zeruak lagundu egingo digula itxarotea; eta **erokeria** da (alogia!) inor, espartarrak-edo, ohorearengatik mugituko direnik, herri txiki bati laguntzeko. Joxe Azurmendi

-On Camillo, **erokeriak** esaten ari zara! Koldo Biguri

Erokeriak egiten ditu diru sobera duenak. Menane Oxandabaratz

Horrenbertze **erokeria** izkiriatzen dizkidazu, non lehendakariaren emazte horrek murgildua zauzkan zintzotasuna behar baitizut barkatu. Jon Muñoz

Erokeriaren bat egingo ote nuen beldur nintzen, neure buruaren beldur. Josu Zabaleta

Erokeria haiek entzunez barre-puska bat egingo zutela. Patxi Ezkiaga

-Ez zitzaian bada, orain, poesia egiten hasteko zera... **erokeria** bururatuko, ezta? J.M. Olaizola "Txiliku"

Badakit **erokeria** dela, baina igual hogei aldiz pentsatzen dut berarengan egunero. Oskar Arana

Hori ikusi behar zuen, noraino gizonaren herra, **erokeria** eta jakitatea joaiten ahal diren. Michel Oronoz

Desiderius Erasmusek (1467-1536) *Encomium Moriae* (**Erokeriaren** gorazarrea) izeneko liburu satirikoa idatzi zuen 1511n. Xabier Olarra

Behin eta berriro maradikatu nuen emazteki hura, eta haren arte eta maina gaixtoa, baita bertze hainbertzetan neure burua ere, neure ergelkeriagatik eta neure **erokeriagatik**, neure zuhurtzia faltagatik eta kontu haietan Demostenesen dizipulua ez izaiteagatik. Joan Mari Irigoien

Gizadiaren etorkizuna filosofiarik eta literaturarik irakurtzen ez duen baten esku uztea **erokeria** litzateke humanista askorentzat. Berria - Gaiak

Erokeria ez baita arrazoia galtzea, baizik arrazoia ez den beste guztia galtzea. Markos Zapiain

Segizioa ibai bazterreraino iristen zen eta han urak bedeinkatu egiten ziren, ibaiak **erokeriarik** egin ez zezan eta zintzo porta zedin. Koldo Biguri

Erokeriazko katramila ikaragarri batean oldartu ginen azkenerako, baina ez naiz batere damutzen -ukitu txiki batzuk egingo nituzke, besterik ez-. Karlos Zabala

Buru gaixo baten zer **erokeria** da hau, txarraren beldur izanik, on den guztia baztertzeko? Iñaki Mendiguren

Heroismotik hasi, **erokeriatik** igaro eta aberekeriaraino iritsiz. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Inor gabe gelditua nintzen berriro, **erokeria** hutsa zen Parisa itzuli nahi izatea. **Erokeria** hutsa baneritzon ere Alemania osoa zeharkatzeari, batez ere Suitzako muga bertan izanik. Anjel Lertxundi

Bere lana ere halakoxea zen, irrazionala, **erokeria** hutsa, hotz-hotzean begiratuz gero behintzat. Harkaitz Cano

Erokeria galanta, inondik ere. Harkaitz Cano

Zaldun bahintz, zigortu nian bai honezkero hire **erokeria** ausarta, sorkari alu horrena. Patxi Ezkiaga

Erokeria izugarria egiten ari zela konturatu zen. Fernando Morillo

Horixe da-eta bizitza honetan egin litekeen **erokeriarik** handiena, nork bere burua, inork ere hiltzen ez duelarik, hiltzen uztea. Patxi Ezkiaga

Hamabietan puntuan, festaren leherketa, **erokeria** kolektiboa, jaiaren orgasmoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Amorostuak egia bilatzen du, baina ez, filosofo klasikoen antzera, patxadaz, baizik **erokeria** ilun batek bultzaturik. Markos Zapiain

Niganantz etorri zen berriro, Vivaldiren **erokeria** ederretako baten notek bilduta. Alberto Ladron Arana

Halakoxea izan zen **erokeria** ilustratua, giza gehiegikeria, geure buruari neurririk hartu ezin izan ziona. Markos Zapiain

Amorostuak egia bilatzen du, baina ez, filosofo klasikoen antzera, patxadaz, baizik **erokeria** ilun batek bultzaturik. Markos Zapiain

Gazte hau gaurko istiluaren erantzule dela esatea sekulako **erokeria** da. Bernardo Atxaga

Mozkorkeria eta bestelako **erokerietarako** aukera. Xabier Mendiguren Elizegi

Barrezka hasi zen, algaraz, ezin sinetsiz halako **erokeria** egin zezakeen galairik egon zitekeenik munduan. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbaitzu **erokeria** egoera batera lerratzen dira, ingurukoeri buruz bortitzak izanez berdin, ordu arte hurbilenak zitzaizkioten presunak arrotz bilakatzeraino. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euforia eta **erokeria**-une horiei jarraiki, konpainia berriak ere sortu ziren, inbertsore berrien eske zegoen euforia-giroari probetxua ateratzeko asmoz. Iñaki Heras

Erokeria aldi hark ez zuen akzioekin ez antzeko ondasunekin loturarik izan. Ez biezaio, otoi, beste inori gure errurik egotz, ondoren datorren **erokeria** parrastada hori geuk asmatu eta eratua baita. Iñaki Heras

· Libre izaten nituen egunetan, Giza **erokeriaren** libururako pasadizoak idazten jarraitzen nuen, eta Lucyk iradoki bezala, haurtzain egiten nuen Tom eta Honey gauez ateratzen zirenean. Oskar Arana

Esan behar da Caddek **gazte** erokeriak / aspaldi zituela erabat utziak. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

austerren brooklyngo erokeriak (4); **brooklyngo erokeriak** (13); **da erokeria** (7); **erokeria baitzen** (3); **erokeria bat** (16); **erokeria da** (22); **erokeria da hori** (3); **erokeria dela** (9); **erokeria egin** (3); **erokeria eta** (3); **erokeria galanta** (4); **erokeria hau** (3); **erokeria hori** (5); **erokeria hura** (4); **erokeria hutsa** (19); **erokeria hutsa da** (3); **erokeria hutsa zen** (5); **erokeria izan** (4); **erokeria izan zela** (3); **erokeria izango** (4); **erokeria litzateke** (6); **erokeria zela** (3); **erokeriak egiten** (6); **erokeriak esaten** (3); **erokeriaren bat** (9); **erokeriarik ez** (3); **eta erokeria** (10); **eta erokeriak** (5); **eta erokeriaren** (3); **ez da erokeria** (3); **giza erokeriaren** (7); **halako erokeria** (5); **hori erokeria** (3); **zer erokeria** (6)

---

erokeriatxo *iz adkor* erokeria.

Wight uhartean oporretan egin ohi diren **erokeriatxo** inozoetan aritu ziren: dantza egin, parranda giroan ibili, gaueko festetara joan... J.M. Olaizola "Txiliku"

---

eroki *adlag* eroaren moduan.

Eta barre egiten zuen, **eroki** gozatuz, bere besarkada ahaltsua geroz eta estuagotuz, pozezko eromen batean oihuka. Josu Zabaleta

Maitatu egin beharko litzateke, **eroki** maitatu, zer maitatzen den ikusi gabe. Josu Zabaleta

Egia da, inork ez ninduen biluzik eta mahaiz mahai saltoka ikusi, ez eta hankaz gora ibiltzen, edo ordenadore ondradu bat **eroki** musukatzen. Joxan Elosegi

Bere penak eta bere soro handiko lan erraldoiak deblauki eta aldi berdinean etsituki edo **eroki**, aipatu zizkidan. Itxaro Borda

Zakila **eroki** torratuz gidatzen zian trucka *son of bitch* hark. Itxaro Borda

Arrainontziko ura saloi osoan hasi zen zabaltzen eta barruan zeuden koloretako arraintxoak urduriki hasi ziren mugitzen, batera eta bestera **eroki**, banaka-banaka hiltzen joan ziren arte. Joxemari Iturralde

Bere erregina berriro agertu zen mirariz, eta, zalantzarik ez, bihotza lasterka batean zebilkion, bere bular maitasunez erian **eroki** taupaka. Oskar Arana

---

eromen *(383 agerraldi, 103 liburu eta 52 artikulutan)* **1** *iz* erotzea (irudizko adieran); egoera edo gertaera nahasgarria. ik **zoramen**.

Eromena, batzuetan, horixe besterik ez da, antza: zeure buruaren oharmena erauzten dizun zirimola bat; orduan, ez zara zu zeu, zirimola bera baizik; ez dago zirimola besterik. Juan Kruz Igerabide

Dementzia edo **eromena** izan zen Txileko Justizia Gorteak Pinochet ez epaitzeko erabili zuen argudioa. Berria - Mundua

Erotuta egon zitekeela, beharbada bai, baina **eromena** sufrimenduak eragindakoa zuela eta **eromenak** sufrimendua eragiten ziola, seguru. Anjel Lertxundi

Behin baino gehiagotan, zigor bat hartu, eta **eromena** zirudien batez amorru bizian jo omen zuen [...] esku ihartu hura. Josu Zabaleta

Hura **eromena**! Rafa Egiguren

"**Eromena** kimika arazoa duk soil-soilik", esaten zuen, "noizbait pastilen bidez konponduko duk dena". Bernardo Atxaga

Golarekin **eromena** nagusitu zen Ipuruan. Berria - Kirola

%10 eta %15eko dolarraren amiltze batek **eromena** eragingo luke dibisa merkatuetan. Berria - Ekonomia

Epaiketa honen atzean «epaile baten **eromena**» eta «Aznarren gobernuaren bultzada politikoa» daudela. Berria - Harian

Zentzumenen hutsegite batetik etor daitekeen beldurrari, izu laborriak eta **eromenak** jarraitzen dio, ezin geratuzko zurrunbilo batean. Josu Zabaleta

Xuxen asmatzen baitaki maiz **eromenak**, arrazoi eta zentzu onaren aldean. Juan Garzia

Irailaren lehenetik hasi nintzen jo eta su ikasten, **eromenak** hartua bezala. Juan Kruz Igerabide

Alegia funtsean ez nagoela **eromenak** joa, eroarena egiten ari baino. Juan Garzia

1930. hamarkadan hasi zen petrolioaren **eromena**. Pako Aristi

Itxaroten geratu nintzen, gorrotoaren **eromenak** ematen duen baretasun irmo horrekin. Juan Kruz Igerabide

Orain, etxegintzaren **eromenak** bizitegi multzo apain bezain garestia eraikiarazia zuen gainean. Aingeru Epaltza

Rotterdamgo Erasmok dio ***Eromenaren*** *laudorioa*-n. Berria - Kultura

Jakinduria bera ez da urteekin eskuetara iristen den gauza garbi bat, batez ere jakinduria zeure **eromenaren** erdi-erditik pasatzen baldin bazara iristen delako, eta askotan eginahal handirik gabe. Pako Aristi

Baziren begininietako hondoa galdutakoak, zoramenaren ertzekoak, eta baziren betzuloak leize bihurturikoak, **eromenaren** mugakoak. Edorta Jimenez

Eromenaren dantza zoroan sentitzen zuen Norak bere burua, eta galtzen ari zen errealitatearen zentzu guztia. Anjel Lertxundi

Eromenaren aukerak inarrosi zion barrena, aita mozkorturik jasotzen zuenetan haren **eromenaren** aukera ere hausnartu izan ohi zuen bezalatsu. Anjel Lertxundi

Erlijio eta kultura arauetatik amiñi bat aldentzen diren jokabide sexual guztiak "patologikoak" dira, gaixotiak, degenerazio mentalaren eta **eromenaren** adierazgarriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere **eromenean** hitz arraroak jaulkitzen zituen, eta, ero guztiek bezala, bazuen ideia finko bat, mamu batek jarraitzen ziola uste zuen. Josu Zabaleta

Bestea, eskolako kidea, ia egunero ikusten zuena, arruntegia zen, neskaren bihotza maitasunaren **eromenean** zorabiatzeko ezgauza. Pako Aristi

Isurketaren unera heltzeko ezer gutxi falta nuenean, neskak bere adatsa askatu, eta ni ile irrikatu haien **eromenean** urtu nintzen. Patxi Zubizarreta

Gizartea espekulazioaren **eromenean** murgildu zen. Iñaki Heras

Eromenetik oso hurbil daude adimen argiak -esan zuen Fogarty jaunak. Irene Aldasoro

Gaur egun ez dago yoga-esperientziak areagotzeko drogak erabiltzen dituen eskola seriorik, **eromenera** eraman baikaitzakete, edota beste kalte moral nahiz fisikoak eragin. Juan Kruz Igerabide

Maitasunaren izenean denak balio duela pentsatzen du; eta Mikelek **eromeneraino** maite duela sentitzen duenez, afaria bukatu eta harengana itzultzeko gogoz iritsi da jatetxera. Eider Rodriguez

Hura nire bizitzan sartzen joan ahala, haren beharra gero eta handiagoa egin zitzaidan, ia **eromeneraino**. Juan Kruz Igerabide

Horixe zen, beraz, halako **eromenaz** gutiziatzen nuena! Koro Navarro

Ez dut neure burua hilduratu nahi eta, beraz, zer gertatzen zaidan jakin nahi dut, **eromenaz** edo morboaz goiti. Agurtzane Juanena

Eromen horretarainoxe eraman dezake egiazaletasun koherenteak. Iñaki Segurola

Bere **eromena** du arerio Hamlet gaixoak. Juan Garzia

Asimetria gehiegizko hau, barkamenaren **eromen** hau, legearen eta politikaren ordenatik erabat heterogeneo den gauza menderaezin hau, hauxe da Abrahanengandik datorren tradizio erlijiosoan dagoena eta kultura post-kristau bati ere ikara sortzen diona. Joseba Zulaika

Azken bost minutuak **eromena** izan ziren. Berria - Kirola

Bereak egina zuen, eta ez zuen damutzeko arrazoirik ez beharrik, baina bere zorion eta **eromena** izan zen perla beltza berarekin batean eramango zuen [...] altxor magiko hori jende zatarraren eskuetan eror ez zedin. Xabier Mendiguren Elizegi

Jakin al daiteke, ordea, jakin, nortzuk diren zuhurrak eta nortzuk eroak, askotan arrazoiari **eromen** eta erokeriari jeinu deitu beharko litzaiokeen bizitza honetan? Josu Zabaleta

Sentimendu haiek ez zetozen burmuinetatik, beste nonbaitetik baizik, ez zuten arrazoimen normalarekin zerikusirik, **eromenarekin** zuten zerikusia. Mikel Hernandez Abaitua

Isiltasuna **eromenarekin** lotzen da, tristurarekin; zarata da alaitasun bakarra. Pako Aristi

Uste dut nork bere **eromenekin** bizi behar duela, ongi zainduz eta behar bada aprobetxatuz. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Medikuek Pinocheten «**eromen** moderatua» baieztatu dute. Berria - Mundua

Hortaz dihardu Eugeniari aipatu nion ***Eromen*** *sortzailea*-k. **Eromen** sakon batean hondoratu zen. Ramon Saizarbitoria

Eromen erotiko makabro batek joa dago. Josu Zabaleta

Azaldu dizkizuedan pasarteok aski izango dituzue, nik uste, **eromen** histerikozko eta lotsa galduko garai honetan uste bezain bakan ez den adimen gaixotasun honen zernolakoak neurtzen. Josu Zabaleta

Eromen negargarri honetan hilko naiz. Koro Navarro

Den-dena dakitelako **eromen** garbiak harrapatuak ez dira asko, egia esanda, baina "denon artean" edo Han Nonbait dena jakina dagoelako sinestean zurrunduak eta zurrungatuak bizi direnak asko eta gehiegi dira. Iñaki Segurola

Horrela bada, esan liteke zoriontasuna eromenaren aurpegi bat dela, **eromen** onetsi bakarra, zeren oso larria eta lotsagarria izanik ere, **eromen** txoroa baita eta gaizgabea. Iñaki Segurola

Atzera begiratu balu, Gollum ikusiko zukeen, apur bat beherago berriro buelta erdia egin eta, **eromen** ankerraren argia begietan, Samen atzetik arineketan arrastaka baina erne, harrien arteko itzal iheskor baten modura. Agustin Otsoa

Hilketa batek, halakotzat ezagutua izateko, esku jakin bat behar du, eta kausa bat, arrazoi argi bat edo pasio itsu bat, edo **eromen** diagnostikatu bat. Iñaki Segurola

Batzuetan, erabateko **eromenera** eraman izan ditu beren setakeriak. Jon Muñoz

Eguna argitu arte geratu ginen, mugitu ezinik, hitz bat bera esan ezinik, esan ere ezinezko **eromen** batean zurturik. Josu Zabaleta

Barre egiten zuen, eroki gozatuz, bere besarkada ahaltsua geroz eta estuagotuz, pozezko **eromen** batean oihuka. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Norak beste batekin engainatzen ninduela susmatzen hasi nintzenean **eromen** sentsazioa izan nuen, nire imajinazioak zirela esaten nion neure buruari. Mikel Hernandez Abaitua

Eromen prozesu bat kontatzen zaigu, bere izugarrian gozoa, edo bere gozoan izugarria. Unai Elorriaga

Eromen kasuak edo erotzeko bidean direnen kasuak dira guztiak. Josu Zabaleta

Inoiz, ordea, ezin izan diote atzeman **eromen** zantzu argi eta garbirik. Pablo Sastre

Badirudi **eromen** izurri bat zabaldu dela azkenaldi honetan Sao Paoloko probintzian. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zerikusi handiagoa du egungo finantza **eromen** pasadizoekin Ingalaterrako South Sea Trading Company edo Frantziako Compagnie d'Occident Mississippiko konpainien kasuak. Iñaki Heras

5 ***eromenezko*** *izlag*

Eromenezko txistu-hots gehiago entzun zuen, eta zerbait zutabeak astintzen ari zela basati. Iñaki Mendiguren

Goizean, lasai abiatuko zatekeen ezin saihestuzko heriotzara, baina arratsaldean, banakako ziegan sartu zutenean, **eromenezko** izu zorabiagarri batek hartu zuen. Jose Morales

Goizean, lasai abiatuko zatekeen ezin saihestuzko heriotzara, baina arratsaldean, banakako ziegan sartu zutenean, **eromenezko** izu zorabiagarri batek hartu zuen. Jose Morales

Quenu **eromenezko** gastuetara ekarria izan zen, kontra ezin egin eta. Karlos Zabala

Luzaro egon nintzen zain, ezertarako erabakirik ezin harturik, gogoa argi, baina **eromenezko** antsiaz. Josu Zabaleta

---

eroraldi ik **erorialdi**.

---

erorarazi, eroraraz, erorarazten *(orobat **eror arazi** g.er., **erorrarazi** g.er., eta **erortarazi** g.er.)* **1** du ad erortzera behartu. (pertsonak)

Zaldiak, izuturik, zutitu ziren, zaldunak lurrera **erorarazi**z. Elena Touyarou

Zuen gurtzaileak hilik **erorarazi**ko ditut idoloen aurrean. Elizen arteko biblia

Lau minutura, tiroek neska jo eta **erorarazi** zutela jakinarazi zuten. Berria - Mundua

Nor edo nor garbitzeko pentsamendua etortzen zitzaidanean, tranpa batean nola **erorarazi**ko pentsatzen nuen. Matías Múgica

Adan gaixoa **zerk** ote zuen erorarazi. Xabier Olarra

Guri EAJri Hitler eta Mussolini **erorarazi** ondoren Franco **erorarazi**ko zutela agindu ziguten. Iban Zaldua

Egiaz, ordea, David filistearren esku **erorarazt**ea nahi zuen Saulek. Elizen arteko biblia

Zer adierazi nahi duzu, Miss Fairfax, ezkontzaren segadan **erorarazi** nuela nik Fidel? Antton Olano

Halabeharrari itzuri egiteko ahaleginak berak **erorarazt**en duela narratzailea emakumearekin ezin biltzea agintzen dion zoritxarraren putzuan. Markos Zapiain

Gertakaririk higuingarrienak eta aldez aurretik ikusgaitzenak eri **erorarazi** nau harriduraz eta xangrinez. Jon Muñoz

Eta tentatzen duena **erorarazt**ea urte askotan lortzen ez badu ere, ez du etsitzen, azkenean errenditu arte. Askoren artean

2 (bestelakoak)

Beste karga batekin zubia bota eta trenaren gainera **erorarazi** dute. Fernando Rey

Beste abioi bat Washingtonen Pentagonoak duen egoitzaren kontra bideratu zuten eta laugarren batek Pennsylvaniako larre batean lurra jo zuen, AEBetako Armadak **erorarazit**a. Juan Garzia

Jo zutabe-buruak eta atari osoa dardaratuko da; txikitu eta **eroraraz** itzazu guztien buruen gainera. Elizen arteko biblia

-Lodiegia? -esan zuen Sethek, Soilguneaz oroituz, non Baby Suggsen aginduek Indi gaztainen lekak **erorarazt**en zituzten-. Anton Garikano

Eta txolarreek irri egiten zuten; aireak **erorarazt**en zituen hostoei mokoka ekin, eta irri egiten zuten. Juan Garzia

Orro-hotsak bete zuen jangela, sabaitik hautsa **erorarazi**z. Iñaki Mendiguren

Agian Alak, herriaren arren suharrek hunkiturik, bere hilobiko aingeruak, Munkar eta Nakir, kristauak suntsitzera bidali ditu, agian **erorarazi** du kristauen armadaren gainean zeruko su iraungiezina. Jon Alonso

Janaria **erorarazi**ko dizuet euri gisa zerutik. Elizen arteko biblia

Fidelek diktadura zikin eta usteldu bat **erorarazi** zuen. Jon Muñoz

Helburua, palestinarrak Hamasekin haserretzea eta honen gobernua **erorarazt**ea, Al Fata boterera itzultzea ahalbidetzeko. Berria - Mundua

Matxinada baten asmoa, Inperioa indar kolpe batez **erorarazt**ekoa, [...] mamitu egin zen pixkanaka Florenten espiritu sutsuan. Karlos Zabala

Ez gaitezen haur izan, edozein irakaspen-haizek astinduak eta harat-honat eramanak, uste okerretan **erorarazt**eko trebe den jende maltzurrak engainatuak. Elizen arteko biblia

Hark irakasten zion Balak-i israeldarrak nola **erorarazi** bekatuan. Elizen arteko biblia

Baldin arrazoi horiek ez bazaituzte nire nahira **erorarazt**en, Cécile, ez nauzu maite nik maite zaitudan bezainbat. Jon Muñoz

Zatar zaharren antzera **erorarazi** zituen haserre eta sumindura guztiak. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eror arazi (5); **erorarazi zituen** (4); **erorarazi zuen** (3); **eta erorarazi** (3); **gainera erorarazi** (3)

---

erorbera *iz* erortzeko joera duena.

Ipurmasailetan malgutasun puntu **erorberago** bat sumatu niola uste izan nuen gero, eta ibiltzeko moduan halako eramankizun nekatuago bat ere bai azkenik. Joxean Agirre

---

erorbide *iz* erortzeko bidea.

Ez dezagun, beraz, gehiago elkar kondena, baizik eta saia zaitezte senideari oztoporik edo **erorbiderik** ez jartzen. Elizen arteko biblia

Bekatariari tranpa bihurtzen zaio mihia, iraintzaile eta harroputzari **erorbide**. Elizen arteko biblia

Ez izan **erorbide** ez juduentzat, ez jentilentzat, ez eliz elkartearentzat ere. Elizen arteko biblia

Nire senideari janariren bat jatea **erorbide** gertatzen bazaio, ez dut inoiz haragirik jango, nire senidea **erorbidean** ez jartzeko. Elizen arteko biblia

Gerta bekizkie beren otorduak tranpa eta sare, **erorbide** eta zigor. Elizen arteko biblia

Zuk ez egin hitzarmenik sartuko zaren lurraldeko biztanleekin, **erorbide** izango bailitzateke hori zuretzat. Jose Antonio Mujika

---

erori, eror, erortzen **1** da *ad* zerbait, bere pisuak eraginik beherantz joan; lurrera erakarria gertatu, oreka edo euskarria galduz. ik **jausi**.

Jaiki eta **erori**, **erori** eta jaiki. Berria - Harian

Gutxienez 52 lagun hil dira Moskun, merkatu bateko teilatua **erorita**. Berria - Harian

Gainerakoek Afek hirira egin zuten ihes; baina harresia hogeita zazpi mila gizon haien gainera **erori** zen. Elizen arteko biblia

Etxea bukatzear zela, bi horma **erori** ziren. Koldo Zuazo

Mendia **eror** daitekeela salatu dute ekologistek. Berria - Kultura

Egia da anitz hil direla bi dorreak **erori** direlarik joan den irailaren 11-an. Herria

Harria nola **erortzen** den eta zergatik **erortzen** den ikustetik, ez baitago aberasterik. Joan Mari Irigoien

2001eko uztailak 4: 143 hildako, Tupolev-154 bat Siberian **erorita**. Berria - Mundua

Aurrera egin eta banaka uretan **erori** ziren, harriak bezain zurrun. Felipe Juaristi

Gurdia abiada bizian zihoalarik, **erori** egin zen bertatik Antioko, eta, halako erorketa txarrean, gorputz-atal guztiak kolpatuak gelditu baitzitzaizkion. Elizen arteko biblia

Jaisterakoan glotodidaktika ikastaroan lantzen ari nintzen euskarazko metodoa **erori** zitzaidan, bera makurtu zen hartzera. Koldo Izagirre

Arto-zirtzil batzuk **erori** ziren atzealdeko apaletik aulkira. Anjel Lertxundi

Bat-batean ur-putzu hotz batera **erori** izan banintz bezain nahasturik sentitu nintzen. Inazio Mujika Iraola

Brau atzera egin eta ia-ia lurrera **erori** baitzen. Karlos Zabala

Errebotea hartzera joan eta arerio batekin tupust eginda, lurrera **erori** zen estatubatuarra. Berria - Kirola

Armstrong-ek erakutsi du hor zela eta nahiz **erori** den egun batez irabazi du. Herria

Oinaze antsiekin ahalegindu zen berriro tentetzen, baina lurrera **erori** zen. Bernardo Atxaga

Aurreko egunean hegazkin amerikar handi bati bonbaren bat edo, **erori** omen zitzaion lurrera uste gabetan, nonbait. Pello Salaburu

Bizikleta hormaren kontra zegoen eta bizikleta **erori** egin zen eta ogiak ere lurrera **erori** ziren. Pello Lizarralde

Une hartan bertan, hain zuzen ere brontzezko ezkutu bat zilarrezko lur batera astun **erori** balitz bezala. Koro Navarro

Intsektuak galdua zuen bere hegoetako lakrea hatzek estututako aldean, eta uretara **erori** zen berehala. Bernardo Atxaga

NASA Estatu Batuetako Espazio Agentziaren Genesis kapsula Utahko desertura (AEB) **erori** zen atzo, paraxutek huts egin ostean. Berria - Gaiak

Estropezu egin eta seinaleak egiteko barra-pilo baten gainera **erori** zen. Lopez de Arana

Artur erregeri borroka batean Eskalibur ezpata aintzira batera **erori** zitzaiolarik, Aintzirako Damak atera zion bertatik, eta ezpata berritu bat eskaini. Juan Kruz Igerabide

Behaztopa egin bainuen, buruz behera **erori** eta buruz harri bat jo. Joan Mari Irigoien

Arratsaldeko hiru eta erdietan zortzi metrotik behera **erori** zen Zumarragako herritarra. Berria - Ekonomia

Joxe Mariren etxeordeko ganbaratxotik **erori** nintzela esan nuen etxean. Juan Kruz Igerabide

-Etxe berriko teilatutik **erori** da. Daniel Landart

Langile bat hil da Urnietan, aldamiotik **erorita**. Berria - Ekonomia

Erdi pareraino irekitako leihotik tiro lehor batzuk irten ziren berehala, eta hatz tartetik zigarroa **erori** zitzaion. Joxemari Urteaga

Masail bietatik tanta lodi gaziak **erori** zitzaizkion. Joxemari Urteaga

Zalditik **erori** eta eskuin hanka hautsi zuen. Felipe Juaristi

Txorikume habiatik **erori** berriari eskaintzen zaion errukizko maitasun barea ikusi nuen amaren begietan. Anjel Lertxundi

Mutilak zerraldo **erori** eta burua hautsi zuen hiltokiko harri baten izkinaren aurka. Karlos Zabala

Gizon bat zegoen luze-luze etzanda, besoak zabalik, muturrez aurrera **erorita**. Karlos Zabala

Harik eta mugimendu haietarik batean goiti-beheiti **erori** zen arte. Joan Mari Irigoien

Honorine ia **erori** zen hankaz gora hitz harrigarrizko haiek entzunda. Josu Zabaleta

Atearen behealdeko letoizko arrabolarekin behaztopa egin eta hankak zabal-zabalik **erori** zen. Lopez de Arana

Indarrik gabe **erori** zen besaulki gainean. Josu Zabaleta

Zerraldo **erortzen** ikusi nuen, neure aurrean. Iban Zaldua

Tximistek argituriko tantak **erortzen** ikusten nitinan, eta arnasa hartu aldiko hasperen egiten ninan. Juan Garzia

Erortzean bere burua babesteko eskua luzatu zuen itsumustuan. Iñaki Mendiguren

Erortzean, garrasi bat ito zitzaion eztarrian. Lopez de Arana

Erortzeko beldurrez eutsi nion burdinari. Joseba Sarrionandia

Eliza antzina eraikia zen San Damianen ohoretan, eta zaharraren zaharrez **erortzeko** zorian zegoen. Askoren artean

Haietako asko **erori** egingo dira eta ez dira jaikiko. Askoren artean

Errukarria bakarrik dagoena; **eroriko** balitz, ez bailuke izango nork jaso. Askoren artean

Sabaiaren erdia **erorita** zeukan etxe bat zen. Juan Garzia

Haren kezka bakarra, ordea: ez zedila izerdi-ttantta bat bera ere **eror** bere paperaren gainera! Joxe Austin Arrieta

Atzo **eroritako** euriteek hainbat istripu eta arazo eragin zituzten errepideetan. Berria - Euskal Herria

Paris, lur beltzaren gainera **eroritako** zeru izartu puska bat iduri, latz agertzen zitzaion. Karlos Zabala

Orduan, anai Pazifiko ahuspez **erori** zitzaion oinetara. Askoren artean

Gero jakin nuen kordea galdu nuela bat-batean; amak ahopetik kontatu zionez ate atzean zain zegoen aitaordeari, eskuak zabal-zabal eginda ziplo **erori** nintzen. Eduardo Matauko

Nor harrituko litzateke McGee muturrez aurrera **erori** izan balitz? Berria - Kirola

Gizona zerraldo **erori** zen, Dominiqueren ganibeta bizkarrean landaturik. Elena Touyarou

Errauts-puska luze bat **erori** zen koronelaren purutik. Lopez de Arana

Hain hartu ninduen saminak, non konortea galdu ez galdu bainengoen, eskaileretan behera itzulipurdika **erori** ez **erori**. Juan Kruz Igerabide

Etxe aurre hartantxe topatu ohi izan nituen neskame gazte alaiak (San Telmo kaletik, suilak buruan orekan **erori** ez **erorian**, guganaino iritsiak, eta gero putzuaren inguruan txanda zain kalakari) joanak zirela betiko. Txillardegi

Berlingo hesia **erori** zenetik sumatzen zen joera hori merkatuetan. Koro Navarro

Zenbat bider ez ote zion entzun aitari gerra garaiko kontu hura, ileak lazteko modukoa: nola **erori** zitzaion zerraldo aldameneko batailoi-kidea, burua bala batek zulatuta.

Imanol Zurutuza

Partidako bi **erortzen** ikusi nituen, aurren-aurreneko tiroetan. Inazio Mujika Iraola

2 irud/hed

Hau da, inori zoroa deitzen diona infernuko garretan **erortzeko** arriskuan dagoela? Lopez de Arana

Zerua buru gainera **erori** zitzaidala uste izan nuen, mazokada bat izan zen lehendabizi. Juan Martin Elexpuru

-A! -bota zuen Nadiak, Mikel Strogoffen besoetan **erortzen** zela. Karlos Zabala

Lehoiak bailiran **erori** ziren etsaien gainera. Elizen arteko biblia

Amets sakonean **erori** aurretik gailur garai eta zuriak ikusi zituen, hodeien gainetik sartaldean behera zihoan ilargiaren argitara, uharte flotagarrien antzera dirdiratzen. Agustin Otsoa

Israel neskatxa ederra **erori** da, ez da gehiago jaikiko; lur jota dago, ez da altxatuko duenik. Elizen arteko biblia

Isiltasun bero bat **erortzen** zen zeru eguzkitsutik behera. Karlos Zabala

Bai Estatu Batuetan, bai EBko herrialdeetan, industriaren zenbatekoak enplegu osoan duen ehunekoa 10 puntutan **erori** da 1970etik 1993ra (hurrenez hurren, %34tik %24ra, eta %40tik %30era). Koro Navarro

Eta gaua **erori** zen, arin eta ilun. Agustin Otsoa

Danbada horrek adierazten dio beste zorigaitz bat **erori** zaiola gainera, are gaitzagoa. Iñaki Segurola

Orduan Smith-en heriotzaren berria **erori** zitzaion brau gainera, eta izuak hartu zuen Harry. Oskar Arana

Bihotza **erori** zitzaion. Iñaki Mendiguren

Sarritan **erortzen** dira, gainera, tranpa horietan. Iñaki Heras

3 (norbaiti zerbait)

Pettigrew makurtuta zegoen Lupini **erori** zitzaion makila magikoa hartzeko. Iñaki Mendiguren

Izerdi tantak **erori** zitzaizkion bekokian behera begietara. Joseba Sarrionandia

Amasarengana aurreratzean, ezpata **erori** zitzaion Joabi. Elizen arteko biblia

Eror bekie Joabi eta beronen ondorengoei hilketa haien errua betierean. Elizen arteko biblia

Baloia eskuetara **erori** zait. Joseba Sarrionandia

4 egoera oker edo gaizto batera erakarria gertatu; desegin.

Edanari ere eman zion eta etxea miseria gorrian **erori** zen. Gotzon Garate

Ez da gehiegikerian **erori** behar. Berria - Kultura

Zoramenean **erori** garelako inpresioa dut batzuetan. Pello Salaburu

Zergatik **erortzen** dira gazteak anorexian? Berria - Gaiak

Laster **erori** zen berriro bere zorakerian, eta dogmatizatzen hasi zen. Juan Martin Elexpuru

Haizela jendekoi, baina arrunkerian **erori** gabe. Juan Garzia

Jainkoaren obra da; Jainkoarena da: nahi duguna egin ote dezakegu berarekin, krimenean **erori** gabe? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Honela herria, herriaren izpiritua [...] anbiguitatean **erortzen** da; eta anbiguitatean **erortzen** da, herria hala pentsatzen duen liberalismoa bera. Joxe Azurmendi

Gizarteak bideratzen dituen moldeei aurre egiteko, konformismo, kontsumismo eta inkomunikazioaren atzaparretan ez **erortzeko**. Berria - Euskal Herria

Edonoren mende **eror** daiteke. Ander Irizar

Otomanoen Inperioa **erori** zenean, turkiar bihurtu zen aitona. Juan Kruz Igerabide

Lehen egunetik, Bastilla **erori** eta indarrean jarri zen egutegiko lehen egunetik, zuen konde-orde jaunak Frantziatik ihes egiteko nahia. Felipe Juaristi

Ez nituen egun asko egin portura ematen zuen etxetxoan: Paris **erori** berri, juduen deportazioak hasi ziren eta zurrumurruak zebiltzan milaka atzerritar atxilotzen zituztela belodromo eta estadioetan. Anjel Lertxundi

Hantxe egon ziren urte askoan, 1958an Irakera itzuli ziren arte, erregea **erori** zenean hain zuzen. Juan Kruz Igerabide

Eta ziur geunden, Hitler eta Mussolini **erortzearekin**, haien lagunen gaztigatzeko ordua etorria zela. Piarres Xarriton

Depresio latz baten mendean **erori** zen, eta orduantxe omen zuen, beste etsimenduzko kolpe batean, neutrinoaren hipotesia bota. Iñaki Segurola

Gizon asko **erori** da hilik. Elizen arteko biblia

Jende asko **erori** zen zauritua; gainerakoek ihes egin zuten. Elizen arteko biblia

Anaiaren bat edonon ere gaixo **eror** baledi, beste anaiek ez bezate bertan behera utz. Askoren artean

Etsaien gudarosteko hiru mila gizon **erori** ziren egun hartan. Elizen arteko biblia

Hilaren 18an **erori** zen Ondarroan, eta Zarauzko kuartelera eraman zuten.Beste koadro historiko batzuek, erakundearen antolamendu militarraren zuzendaritzakoak izandakoek, **erori** gabeko azpiegitura kontrolpean zeukatenek, beste ETA bat osatu zuten. Rafa Egiguren

Ia zuzendaritza osoa **erori** zen. Rafa Egiguren

Leporaino zituen urak eta, kanpotik eta barrutik atsekabeturik, sarean **erortzera** doan txoria bezala aurkitu zen. Askoren artean

Nahiago dut, hala ere, ezezkoa eman eta zuen eskuetan **erori**, Jaunaren aurrean bekatu egin baino. Jose Antonio Mujika

Zertan ekarri gaitu Jaunak lurralde honetara: gu gerran **erortzeko** eta gure emazte eta seme-alabak gatibu bihurtzeko? Elizen arteko biblia

Frantziskok, 20 urteko gaztea zelarik, Asisko miliziekin hartu zuen parte borrokan eta preso **erori** zen. Askoren artean

Eramango ditut, ostera, zuen seme-alabak, gatibu **eroriko** zirela zeniotenak, zuek gutxietsi duzuen lurraldera, hartaz gozatzeko. Elizen arteko biblia

Eror dadila madarikazioa zure eta zure jendearen gainean. Agustin Otsoa

Hona non Aita Sainduak adierazten duen izatez ez dela artzapezpikua neholako heresiatan **erori** ez eta ondorioz, huts horrentzat ezarri nehongo gaztigutan, ez duela ere galdu bere kargua eta are gutiago galdu behar bizia. Piarres Xarriton

Superstiziozko sinesteetan **erortzen** ziren berriro, gauza miresgarrien azkeneko hondar hartaraxe atxikitzen ziren, magnetismoaren misterio horren deboto bilakaturik, zientziaren izenean defendatuz. Josu Zabaleta

Errejimen komunista **erori** ostean ere, «gizakien arteko gatazka eta estuasunek oraindik badiraute, eta bada idazteko gairik», dio idazleak etorkizuna itxaropenez begiratuz. Juanitori 12 urte eta egun bat **erori** zitzaizkion, eta gainerakoei 48 urte, baina heriotza-zigorra, eskerrak, hutsean gelditu zen. Berria - Kultura

Errusiar dominoa **erori** orduko, Brasilera jo zuten merkatuek. Koro Navarro

Eraiki orduko, estatuak **erori** edo hondatu egiten dira. Koro Navarro

Arrain ederrak **erori** dira gure sareetara egun. Itxaro Borda

5 (hitz elkartuetan)

Ez izan beldurrik, Sion, ez egon bihotz-**eroria**. Elizen arteko biblia

Eskerrak eman zizkion anaiekin batera Jainko ahalguztidunari, apalduak goratzen eta bihotz-**eroriak** salbamenera jasotzen dituenari. Askoren artean

6 (era burutua izenondo gisa)

Pabilioietako horma **eroriak**. Harkaitz Cano

Eskua zegoen lekura makurtu eta muin heze hura ematean, une txiki batez erdikusi ahal izan zion soina, besoaren azpian, zeta arrosazko mahuka **eroriaren** bitartez. Lopez de Arana

Baranda **erori** batzuk, pergola okertu bat, zuloz josiriko sahats-enbor zahar bat. Jose Morales

Zeruko hirian aingeru **eroriek** hutsik utzitako lekuak, birjintasuna gordeko dutenek eta beren kastitateagatik distiratuko dutenek beteko dituzte zuei esker. Askoren artean

Bere ezpain **eroriak** okertu eta burua Joerenganantz makurtu zuen. Lopez de Arana

Baziren makartzuak, erbi ezpainje **erorikoak**, hankaje bihurrikoak, eta beste zernahi alderdi maketseko eta itsusikoak. Patziku Perurena

Masailak **eroriak**; tente kokotsa; sudurra zuzen; azala, berriz, ia leun, zimurrik gabe. Jon Muñoz

Bizirik dago oinazea oraindik, zure oraingo bular **eroriagoetan** lo, zure oraingo eztarri urratuagoan zain. Lourdes Oñederra

Hain bihotz **eroriaz** hitz egiten zuen Woodek, ezen Fredek eta Georgek ere errukia sentitu baitzuten. Iñaki Mendiguren

Ibaiko islara itzultzean, harresi erdi **eroriaren** arrailduran iguana bat ikusi dut. Joseba Sarrionandia

Bera bezalakoxe gizon **erori** bat, gizon gaixotu bat ikusiko zuen hark aspalditxotik ezagutzen zuen Julianen baitan. Iñaki Segurola

Aurrean nuen eszenari begiratu nion [...] arimako sentipen guztiz **erori** batez. Koro Navarro

· Aurrez aurre aurkitu zuen txakurra, inongo haitzartetara jausi gabe, inongo hareatza mugikorretan sartu gabe, bistan basurde arrastorik gabe, belarri **erori**-luzeak ere geldi, sastraka batzuei so. Joxemari Urteaga

7 (era burutua izen gisa)

Ate hautsitik behera joan ziren, gero, bidea inguratzen zuen larrean, **erorien** tumuluen aurretik pasatzeko; Agustin Otsoa

8 *erortzeko min ipar* epilepsia.

Ofizioko gizonak berehala, **erortzeko mina** zela, dudarik gabe. Michel Oronoz

Jakiten ahal duk bertze zenbaitek guk baino malezia gehiago badutela eta berehala susmatzen dutela **erortzeko min** horrek bertzerik gordetzen duela. Michel Oronoz

Adibidez, **erortzeko mina** dutenek (erorteko mina: Zuberoako baserritarrek horrela esaten diote epilepsiari). Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

behera eror (9); **eror dadin** (9); **eror daiteke** (9); **eror daitekeela** (6); **eror ez** (51); **eror ez dadin** (12); **eror ez daitezen** (11); **eror ez zedin** (14); **eror liteke** (5); **eror zedin** (7); **eror zitezkeen** (5); **eskuetan eror** (6); **gainera eror** (10)

ahozpez erori (13); **ahozpez erori nintzen** (6); **ahuspez erori** (10); **aldiz erori** (6); **altueratik erori** (7); **altueratik erori zen** (6); **ari zela erori** (12); **artean erori** (8); **artean erori zen** (6); **asko erori** (14); **astun erori** (7); **atzaparretan erori** (5); **atzera erori** (6); **atzeraka erori** (10); **atzeraka erori zen** (5); **aulkitik erori** (5); **aurrera erori** (13); **aurrera erori zen** (8); **baina erori** (8); **bat batean erori** (7); **bat bezala erori** (6); **bat erori** (111); **bat erori da** (10); **bat erori eta** (15); **bat erori zen** (29); **bat erori zitzaion** (10); **bat gainera erori** (10); **bat lurrera erori** (5); **batean erori** (39); **batean erori zen** (9); **baten gainera erori** (6); **batera erori** (24); **batera erori zen** (12); **batetik behera erori** (5); **batetik erori** (12); **batetik erori zen** (6); **batzuk erori** (16); **batzuk erori ziren** (7); **behera erori** (112); **behera erori da** (7); **behera erori eta** (12); **behera erori zen** (46); **belauniko erori** (17); **belauniko erori zen** (8); **bera erori** (5); **berehala erori** (5); **berriro erori** (9); **berriz erori** (5); **bertan behera erori** (11); **bertan erori** (6); **besoetan erori** (9); **besoetara erori** (6); **bezala erori** (18); **bezala erori zen** (10); **biak erori** (5); **bidean erori** (6); **bilbo erori** (5); **buru gainera erori** (5); **buruz behera erori** (5); **da erori** (7); **edo erori** (9); **egin eta erori** (9); **eginda erori** (7); **erdi erori** (16); **ere erori** (26)

erori ahala (7); **erori arte** (17); **erori aurretik** (19); **erori baino** (16); **erori baino lehen** (8); **erori baita** (5); **erori baitzen** (15); **erori baitzitzaion** (5); **erori balitz** (7); **erori bat** (11); **erori behar** (39); **erori behar zuela** (5); **erori berri** (6); **erori berria** (7); **erori da** (159); **erori da eta** (13); **erori dela** (29); **erori den** (25); **erori dena** (7); **erori dira** (44); **erori direla** (9); **erori diren** (12); **erori edo** (8); **erori egin** (172); **erori egin da** (22); **erori egin dira** (5); **erori egin naiz** (7); **erori egin nintzen** (8); **erori egin zara** (5); **erori egin zen** (79); **erori egin ziren** (9); **erori egin zitzaion** (6); **erori egingo** (33); **erori egingo da** (8); **erori egingo dira** (10); **erori egiten** (41); **erori egiten da** (14); **erori egiten dira** (6); **erori ere** (9); **erori eta** (279); **erori eta gero** (11); **erori eta hantxe** (6); **erori eta hil** (10); **erori eta lurrean** (5); **erori ez** (22); **erori gabe** (62); **erori gara** (6); **erori ginen** (18); **erori izan** (27); **erori izan balitz** (10); **erori izana** (7); **erori nahi** (24); **erori nahi ez** (6); **erori naiz** (11); **erori nintzen** (67); **erori ohi** (5); **erori omen** (10); **erori omen zen** (7); **erori ondoren** (31); **erori ostean** (26); **erori ote** (6); **erori zaio** (17); **erori zaiola** (5); **erori zaion** (6); **erori zait** (7); **erori zara** (8); **erori zela** (43); **erori zela eta** (6); **erori zelako** (6); **erori zen** (752); **erori zen arte** (8); **erori zen atzo** (8); **erori zen bere** (9); **erori zen berriro** (5); **erori zen eta** (43); **erori zen lurrera** (27); **erori zen nire** (5); **erori zena** (5); **erori zenean** (52); **erori zenetik** (11); **erori zirela** (12); **erori ziren** (195); **erori ziren eta** (7); **erori ziren lurrera** (10); **erori zitzaidan** (22); **erori zitzaien** (9); **erori zitzaiola** (5); **erori zitzaion** (111); **erori zitzaion eta** (6); **erori zitzaizkidan** (7); **erori zitzaizkien** (5); **erori zitzaizkion** (44); **erori zuan** (5)

errepidera erori (9); **eskaileretan behera erori** (7); **eskuetan erori** (33); **eskuetan erori zen** (9); **eskuetatik erori** (7); **eta erori** (66); **eta erori egin** (30); **eta ia erori** (6); **eta lurrera erori** (40); **eta zerraldo erori** (5); **ez erori** (8); **ez zen erori** (9); **gabe erori** (7); **gabe erori zen** (5); **gainean erori** (28); **gainean erori zen** (8); **gainean erori ziren** (6); **gainera erori** (146); **gainera erori eta** (23); **gainera erori zen** (34); **gainera erori ziren** (7); **gainera erori zitzaion** (19); **gainerat erori** (5); **gero erori** (5); **goitik behera erori** (13); **gora erori** (10); **guztiak erori** (7); **han erori** (6); **hankaz gora erori** (7); **harresia erori** (6); **hartan erori** (10); **hegazkina erori** (12); **hilik erori** (12); **hilik erori zen** (6); **horregatik erori** (5); **horretan erori** (15); **hura erori** (6); **ia erori** (25); **ia erori zen** (12); **ia ia erori** (5); **ibaira erori** (19); **ibaira erori zen** (7); **ilea erori** (6); **itsasora erori** (11); **jota erori** (7); **kableen gainera erori** (5); **kontra erori** (6); **leher eginda erori** (5); **lurrera erori** (222); **lurrera erori da** (15); **lurrera erori eta** (19); **lurrera erori ginen** (6); **lurrera erori ondoren** (6); **lurrera erori zela** (5); **lurrera erori zen** (75); **lurrera erori ziren** (19); **lurrera erori zitzaion** (10); **maldan behera erori** (5); **mende erori** (9); **metroko altueratik erori** (5); **metrotik behera erori** (6); **moduan erori** (5); **muturrez aurrera erori** (11); **nola erori** (13); **nola erori zen** (6); **non erori** (6); **ohetik erori** (6); **oinetara erori** (11); **oinetara erori zen** (5); **ondoan erori** (8); **ondorioz erori** (5); **orduan erori** (5); **osoa erori** (6); **putzura erori** (6); **sarean erori** (6); **tanta bat erori** (6); **teilatutik erori** (6); **tentaldian erori** (6); **tranpan erori** (6); **uretara erori** (21); **uretara erori zen** (9); **zalditik erori** (13); **zela erori** (13); **zela erori eta** (5); **zen erori** (12); **zepoan erori** (5); **zerbait erori** (5); **zergatik erori** (12); **zergatik erori zen** (8); **zerraldo erori** (46); **zerraldo erori da** (5); **zerraldo erori zen** (24); **zerutik erori** (6); **ziplo erori** (13); **ziplo erori zen** (10); **zulora erori** (5)

bat eroriko (8); **bat erorita** (12); **bat gainera erorita** (6); **batean eroriko** (6); **batera erorita** (5); **batetik erorita** (13); **behera eroriko** (11); **behera erorita** (11); **berez eroriko** (5); **bezala eroriko** (9); **bihotz eroria** (7); **buru gainera eroriko** (5); **erdi eroria** (10); **erdi eroriak** (5); **ere eroriko** (5); **eroria eta** (7); **eroria zegoen** (5); **eroria zela** (5); **eroria zen** (22); **eroria zuen** (6); **eroriak eta** (9); **eroriak ziren** (5); **eroriko balitz** (12); **eroriko da** (48); **eroriko dela** (11); **eroriko den** (6); **eroriko dira** (36); **eroriko duk** (6); **eroriko ez** (15); **eroriko ez eroriko** (5); **eroriko litzateke** (10); **eroriko ote** (8); **eroriko zara** (12); **eroriko zarete** (6); **eroriko zela** (19); **eroriko zen** (25); **erorita ere** (5); **erorita erredakzioa** (7); **erorita eta** (5); **erorita hil** (7); **erorita hil zen** (6); **erorita zegoen** (6); **erorita zeukan** (8); **eroritako euri** (5); **eroriz gero** (27); **eta eroria** (11); **eta eroriago** (5); **eta eroriko** (16); **eta eroritako** (5); **ez eroriko** (6); **ez gara eroriko** (5); **gainera eroriko** (26); **gainera erorita** (17); **gainera eroritako** (5); **gara eroriko** (5); **gerran eroriko** (5); **hilik eroriko** (5); **horma eroriak** (6); **ia erorian** (7); **ibaira erorita** (7); **laster eroriko** (10); **lurrean erorita** (8); **lurrera eroria** (6); **lurrera eroriko** (11); **lurrera eroriko zen** (5); **lurrera erorita** (9); **lurrera eroritako** (7); **mahaitik eroritako** (5); **noiz eroriko** (12); **zerutik eroritako** (9); **ziplo eroriko** (5)

atzaparretan erortzeko (5); **behera erortzea** (10); **behera erortzeko** (11); **erortzea da** (11); **erortzeko arrisku** (11); **erortzeko arriskua** (20); **erortzeko arriskuan** (12); **erortzeko beldurrez** (6); **erortzeko eskatu** (5); **erortzeko eta** (5); **erortzeko mina** (5); **erortzeko zorian** (52); **erortzeko zorian egon** (6); **erortzeko zorian zegoen** (7); **eta erortzeko** (5); **ez erortzea** (14); **ez erortzeko** (90); **ez erortzeko eskatu** (5); **lurrera erortzean** (6); **lurrera erortzeko** (11); **lurrera ez erortzeko** (5); **tentaldian ez erortzeko** (6)

bat bezala erortzen (5); **bat erortzen** (36); **bat erortzen da** (8); **bat erortzen zen** (6); **batean erortzen** (11); **baten gainera erortzen** (5); **batera erortzen** (8); **batetik erortzen** (5); **batzuk erortzen** (8); **behera erortzen** (42); **behera erortzen zitzaizkion** (7); **berriro erortzen** (6); **berriz erortzen** (6); **bertan behera erortzen** (5); **bezala erortzen** (15); **da erortzen** (10); **erortzen ari** (85); **erortzen ari da** (8); **erortzen ari den** (8); **erortzen ari dira** (6); **erortzen ari zela** (6); **erortzen ari zen** (11); **erortzen ari ziren** (7); **erortzen bada** (19); **erortzen badira** (5); **erortzen baitira** (5); **erortzen bazen** (12); **erortzen da** (79); **erortzen dela** (9); **erortzen den** (54); **erortzen dena** (9); **erortzen denean** (20); **erortzen dira** (59); **erortzen direla** (8); **erortzen diren** (33); **erortzen direnean** (8); **erortzen eta** (15); **erortzen ez** (11); **erortzen gara** (5); **erortzen hasi** (23); **erortzen hasi zen** (7); **erortzen hasi ziren** (5); **erortzen hasten** (9); **erortzen ikusi** (29); **erortzen ikusi nuen** (5); **erortzen ikusten** (10); **erortzen naiz** (6); **erortzen nintzen** (7); **erortzen utzi** (111); **erortzen utzi du** (8); **erortzen utzi eta** (8); **erortzen utzi nuen** (6); **erortzen utzi zituen** (9); **erortzen utzi zuen** (36); **erortzen utziko** (9); **erortzen utzita** (6); **erortzen utziz** (12); **erortzen uzten** (16); **erortzen zaio** (9); **erortzen zela** (11); **erortzen zen** (70); **erortzen zenean** (6); **erortzen ziren** (96); **erortzen zitzaiola** (11); **erortzen zitzaion** (26); **erortzen zitzaizkiola** (7); **erortzen zitzaizkion** (20); **erortzera utzi** (11); **eta erortzen** (33); **eta erortzen utzi** (5); **eta lurrera erortzen** (13); **etengabe erortzen** (7); **ez da erortzen** (6); **gabe erortzen** (5); **gainean erortzen** (23); **gainera erortzen** (71); **gainera erortzen ari** (5); **gainera erortzen bada** (5); **gainera erortzen da** (7); **gainera erortzen utzi** (11); **gainetik erortzen** (5); **goitik behera erortzen** (7); **horretan erortzen** (7); **hostoak erortzen** (8); **ikusi erortzen** (5); **itsasora erortzen** (5); **jendea erortzen** (5); **kontraesanean erortzen** (7); **lurrera erortzen** (68); **lurrera erortzen utzi** (16); **lurrera erortzen ziren** (6); **lurrera erortzera** (5); **nola erortzen** (21); **nola erortzen zen** (6); **sarean erortzen** (5); **tantak erortzen** (8); **tantaka erortzen** (5); **zen erortzen** (6); **zergatik erortzen** (5); **zerraldo erortzen** (15); **zerutik erortzen** (7); **ziren erortzen** (5); **zulora erortzen** (5)

---

erorialdi *(orobat **eroraldi** g.er.) iz* erortzea, norbait edo zerbait erortzen den aldia.

Itsaslabarrean beherako **erorialdia**. Anjel Lertxundi

Kontrakoa espero nuen arren, bidaia hartako **erorialdiak** ez zidan arrastorik utzi: ezkerreko izterrean egin nuen zauri ikusgarria ez zen orban iraunkor bilakatu. Iban Zaldua

Osasunaren **erorialdirik** arinena ere larria da lehendik makal dagoen gaixoarentzat. Imanol Zurutuza

Zibilizazioen goraldiak eta **erorialdiak** gurpil baten biraketekin konparatzen dira, gurpilaren xedea erlijioaren gurdia aurrerantz eramatea delarik. Iñaki Mendiguren

Zentzu teknikoan depresioak esatean ekoizpen-bolumen, benetako diru-sarrera eta enpleguaren **erorialdi** luze eta nabarmen horiek esan nahi ditugu, ekonomi sistemaren beraren barruan sorturiko faktoreen eragiketak bakarrik esplika ditzakeenak. Iñaki Mendiguren

Ziurtatu dugu, **erorialdi** eta susperraldien erritmo ziklikoak -non desintegraziorantzako joera nagusia gudu luzean borrokatu baita erresistentzi mugimenduaren aurka- hiru pultsazio eta erdi izan ohi zituela - **erorialdia**, susperraldia, **erorialdi** berria, susperraldia, **erorialdi** berria, susperraldia, **erorialdi** berria- zibilizazio baten kolapsotik bere azken deuseztapenerako bidaia historikoa egitean. Iñaki Mendiguren

Erorialdi berri honi bigarren susperraldi iraunkorrago batek jarraitzen dio, estatu unibertsalaren ezarpenean agertzen dena. Iñaki Mendiguren

Erromatar Inperioaren **erorialdia**. Itziar Otegi

Inperioaren eta aitasantutzaren **erorialdiek** bidea garbi utzi zuten Mendebaldean parroki estatuak aurrera egiteko. Iñaki Mendiguren

Ezinean, **erorialdian** edo malenkonian ernetzen dira eskuarki egiarik ederrenak, zinezkoenak eta beltzenak. Iñaki Segurola

Tartean, **erorialdi** bat izan zuen, ziurtzat jo baitzuen Juanek hantxe utziko zuela goseak hil arte. Bernardo Atxaga

Bat-batean, Remy Martinen berotasunak abandonatu izan banindu bezala, eta aingeru guardakoaren babesak harekin batera, **erorialdi** bat sentitu nuen barnealdean: nire arima, hain zuzen ere, oinetaraino erori izan balitzait bezala. Bernardo Atxaga

---

eroriko 1 *iz* lurrera erortzea, oreka edo euskarria galduz; zerbaiten maila jaistea.

Antza denez, Iñigo Lizaso Balerdiko hegal batetik amildu eta berrehun metro inguruko **erorikoa** izan zuen. Berria - Euskal Herria

Iaz Tourrean **erorikoa** izan zuenetik gorputzari buelta eman ezinik ibili da. Berria - Kirola

Aspaldian nekez kurritzen zuen, Urdozen bizi zelarik **eroriko** bat egin ondoan. Herria

Josean Jauregi Oiharbide gipuzkoarrak bizia galdu du, **eroriko** bat eginik, Irubelakaskotik Aritzakun-Berekotxera buruz zoalarik. Herria

Eroriko baten ondorioz, belauna apurtu dut. Askoren artean

Kordogabeturik, lurrera zihoala, esku batek eutsi zion, **erorikoa** eragotziz. Felipe Juaristi

Cipollinik Tourrean izandako **erorikoa**. Anjel Lertxundi

Nikolas izeneko sakristaua goizean elizan sartzera zihoala, zoritxarreko **erorikoa** izan zuen, eta ondorioz heste guztiak atera zitzaizkion sabelpetik. Askoren artean

Hango bidaztien itzulipurdiak eta **erorikoak**! Karlos Zabala

Uste dut **erorikoaren** kolpea samurtzeko dagoela hemen. Iñaki Mendiguren

Elur erortze batek eraginik izan ote zen ala **erorikoak** ote zuen eragin elur erortzea, ez da behin ere jakinen. Berria - Kultura

«Jendea izotzak eragindako **erorikoengatik** etorri zaigu, eta, beraz, arazo larriak ez dira», zehaztu zion Berriari Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko eledun Josu Osesek. Berria - Euskal Herria

Globo bitxi hori, kurba handi bat eginik, itsasoan urruti erori zen; kanoi tiro bat bezala entzun nuen haren **erorikoaren** hots sakona. Josu Zabaleta

Nekez jasan baitzezaketen, bihotzik gabekoak izan ezik, emakumeen heriotza urkamendian, lehertu egiten baitzitzaizkien lehen **erorikoan** sabel barrenak. Felipe Juaristi

Esportazio merkatuen murriztea eta lehengaien prezioen **erorikoa**, hain zuzen ere, zorraren interesak izugarri hazten ari ziren une berberean gertatu ziren. Koro Navarro

Ekoizpenaren **erorikoak**, desberdintasunen areagotze izugarriak, esportazioan lehengaietan espezializaturik jarraitzeak eta kanpoko mailegura masiboki jotzeak, ez dirudi aukera handirik uzten dienik. Koro Navarro

Lau urtez beraz, artifizialki eutsi zaio eskualde honetako herrialdeen lehiakortasunari, Japoniari buruz bereziki, dolarraren **erorikoaren** eraginez. Koro Navarro

Iaz Tourrean **erorikoa** izan zuenetik gorputzari buelta eman ezinik ibili da. Berria - Kirola

Praderak **eroriko** larri bat izan zuen hamargarren etapan, eta azken bi egunotan minez egon da. Berria - Kirola

Ez zuten **eroriko** handirik egiteko arriskurik, ez baitzen erortzeko lekurik ere. Eneko Bidegain

Arrandan hartua zuen etxean berean **eroriko** tzar bat egin du, bai eta ixter-hezurra hautsi. Herria

Seigarren itzulian, zirkuitu bazterreko belarra zapaldu ostean, **eroriko** ikusgarria izan zuen eta punturik gabe geratu zen. Berria - Kirola

Italiako Giroan **eroriko** izigarri bat eginik, ospitalera altxatu zuten Euskalteleko txirrindularia, lepauztaia, beso ezkerra eta bederatzi kosta hautsirik. Herria

Haren ustez, «gerta liteke» etxebizitzen prezioek **«eroriko** itzela» jasatea. Berria - Ekonomia

2 egoera oker edo gaizto batera erakarria gertatzea; desegitea.

Herri bakoitzaren sorrera, hazkuntza, heldutasuna, eta **erorikoa** nola gauzatzen den. Joseba Zulaika

Zenbat eta bizkorrago hazi, handiagoa izan daiteke **erorikoa**. Berria - Ekonomia

Gizarte Helenikoaren kolapsoaren biharamunean Platonek, postura zurrun seguruan egonkortuz beste **eroriko** batetik gogotsu babestu nahi zuelarik, idealizatu egin zuen kultura egipziakoaren egonkortasun konparatiboa. Iñaki Mendiguren

Merkatu espekulatiboen **erorikoa**, kapitalen ihesa eta kanpoko kreditu-lineak izoztea. Koro Navarro

Estatu unibertsalek badute hirugarren ezaugarri nabarmen bat: susperraldi [...] baten adierazpide dira desintegrazio-prozesuan, honek pultsazio-segida bat izaten duelarik: **erorikoaren** eta susperraldiaren ondoren, **eroriko** berria. Iñaki Mendiguren

Aurretiko Zibilizazio Helenikoaren gainbehera eta **erorikoaren** esanahiaren irakurketa. Iñaki Mendiguren

Inperio Otomanoaren **erorikoa**. Koro Navarro

Erregimen horren **erorikoak**, 1970eko hamarraldian, apurka-apurka, kapitalen mugimenduen erabateko liberalizazioari buruzko erresistentzia oro ezabatu zuen. Koro Navarro

Zibilizazioen goraldi eta **erorikoen** mugimendu zikliko eta errepikatua. Iñaki Mendiguren

Jende gehiago geureganatzeko asmotan genbiltzan -propaganda banatzeko, besteak beste-, baina **erorikoak** gertatu ziren. Rafa Egiguren

1969ko **eroriko** handi hartan Jabier Larena atxilotu zutenetik, beste kargu bati ere egin behar diozu aurre. Rafa Egiguren

Zenbait gairi buruzko azterketak biltzen zituzten: besteak beste, **erorikoak**, errepresioa, militantzia, fronte kulturala eta langileena. Rafa Egiguren

Apirileko **erorikoaren** ondoren erakundea berregin eta gero, bi buruzagirekin bildu nintzen, Petxo eta Patxo, eta Eustakio Mendizabalekin batera Hegoaldera jaisteko proposatu zidaten, jarduera militarra bideratzeko. Rafa Egiguren

Artekale eta Mongrovejoko **erorikoak** gertatuz geroztik, erabat sakabanatuta omen zegoen militantzia. Rafa Egiguren

Betiko gorde dira han Satanen **eroriko** haren aztarrenak. Josu Zabaleta

Erorikoaren eta susperraldiaren ondoren, **eroriko** berria. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eroriko bat (14); **eroriko bat egin** (4); **eroriko bat eginik** (4); **eroriko batean** (3); **eroriko baten** (12); **eroriko baten ondorioz** (6); **eroriko baten ondotik** (3); **eroriko tzar** (3); **erorikoa izan** (12); **erorikoa izan zuen** (7); **erorikoaren ondorioz** (3); **erorikoen ondorioz** (3); **eta erorikoa** (3); **eta erorikoak** (3); **eta erorikoen** (4); **izandako erorikoa** (4)

---

erorixe 1 *izond* erori samarra.

Herririk gehienak, etengabeko gerratean, kasik eskeleto huts bihurtuak; dorre eta gaztelu **erorixeak**; etxe hutsak, gizonik gehienak gerran; elizak itxiak edo gerrako babes bihurtuak. Patziku Perurena

Kirurjilari baten eskuetan jarri omen zen jatorrizko bi titi **erorixeak** igo ziezaizkion. Karlos Linazasoro

"Suhiltzaileek", pentsatu zuen, bere buruari txantxa hori onartuz, eta, beste zotin batek irribarre **erorixea** desitxuratu ziolarik, seriotasun mingarrira itzuli zen segituan. Karlos Linazasoro

Dortokazko armazoi beltzeko betaurrekoak **erorixeak** zituela bere sudurtzarraren gainean. Fernando Rey

2 (adizlagun gisa)

Emakumeek sorbaldak **erorixe** zituzten, hotzagatik bainoago beldurragatik, giza gorputzak kuzkurtzen, txikitzen eta ahultzen dituen sentimendu horregatik, giza arimak loditzen, hanpatzen, kargatzen dituen sentimendu horregatik. Felipe Juaristi

---

erorka 1 *adlag* erortzen; eroriz eta eroriz.

Hilobiz hilobi jauzika eta **erorka** iritsi nintzen neure benetako etxera, neure benetako hilobira. Felipe Juaristi

Ilunpetan **erorka** joango ziren beren bila etxe suntsituen hondamenean, garabien eta eskaileren artean. Koro Navarro

-Ez nintzen erori, ez -Santxok esan-, baina halakoxe ikara hartu nuen nire nagusia **erorka** ikusita, min hartzen dut nire gorputzean. harriak eta enborrak **erorka** hasi zitzaizkien eskuin aldeko ezpondetatik behera. Patxi Ezkiaga

Gizajoa Leslie Bird porto-edalea, gizajoa Gil Morris txikia, arrasto beltz bat margotuz betazpietan markatzen baitzuen larunbatero bere nasaikeria, han ikusiko banindute, paretetan boxeolarien argazkiak erdi **erorka** zituen gela ilun, mixerable hartan. Koro Navarro

Ikazdunak tabernarako urrats urriak egin zituen, eta errabinoa atzetik joan zitzaion, erdi **erorka**. Koro Navarro

Bat-batean, tximistargi baten distiran, haietako harritzar bat **erorka-erorka** behera zetorrela ohartu ziren. Karlos Zabala

2 *iz* erorikoa.

Erorka biren ondoren iritsi zen eguzkiak laster berotuko zituen iturburuko haitzetara, hankapalua narraska eroala. Koldo Izagirre

Zaldun-ezkutariei laguntzera etortzeko agindu zien dukeak bere ehiztariei; aski hondatua zegoen Don Kijote **erorka** hartatik, jaso zutenean. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta erorka (4)

---

erorketa 1 *iz* erortzea. ik **eroriko; erorialdi**.

Nola bilaka daiteke hosto baten **erorketa** istorio gogoangarri, eta nola erailketa baten narrazioa interesik gabeko istorio txatxu. Lander Garro

Gure askatasuna nahi nuen nik, militarrek eraikitako harresi guztien **erorketa**. Txillardegi

Nori izan zion ardura Ikaroren **erorketak**? Bernardo Atxaga

Erorketaren ondorioz, eskuineko zangoan, belaunean eta aurpegian zauriak ditu. Berria - Ekonomia

Istripuen %80 **erorketak** direla eta seigarren ordutik aurrera gertatzen direla. Berria - Ekonomia

"Damaskora abiatu eta zalditik erori", esan ohi da Paulori gertatutakoa aintzat hartuz, baina gure **erorketa**, Tatiren filmetan bezala, areago joan eta bikoitza izan zen. Bernardo Atxaga

Erorketaren hotsaz familia osoa esnatu zen. Askoren artean

Erorketaren burrunba entzutean hurbildu ziren auzokoek negar egin zuten hildako bi emakumeengatik. Askoren artean

Singapurko burtsaren **erorketa**. Iban Zaldua

Gamesak Atlantikoaz haratago parkea inauguratu du, baina %1,49 erori zen atzo, eta Telefonica Moviles gogor kolpatu zuen balio merkatuak, %1,84ko **erorketa** eraginda. Berria - Ekonomia

Mussoliniren **erorketaren** ondoan haziriko talde bat. Juan Garzia

Jerusalemen **erorketaren** berri. Elizen arteko biblia

Erregimen Zaharraren **erorketa** argi da noiz gertatu zen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan: 1789an. Berria - Kultura

Ordena zaharraren **erorketa** bera baino, beste bat zuen, baiki, kezka: ateetan ikusten ari zen faxismoarena. Anjel Lertxundi

Totalitarismoaren **erorketarekin** gauza on ugari irabazi ditu kulturak, baina galerak ere izan ditu; tele-zaborra ugaldu da, esaterako. Berria - Kultura

Nik ez dut ikusten prezioen **erorketarik**, batez ere lehen etxebizitzaren merkatuan. Berria - Ekonomia

Erorketek segitzen dute: 89 ko abendoan, 7 IK-ko kide arrastatuak dira; [...]. Herria

Gero etorri ziren Bilboko Artekale eta Mogrovejoko **erorketak** eta Burgosko epaiketa. Joseba Zulaika

Haien artetik ateratzen ziren ETA ko ekintzaile eta laguntzaileak, noizean behin gertatzen ziren **erorketek** agerian uzten zutenez. Juan Kruz Igerabide

Harropuzkeriaren ondoren hondamendia, handikeriaren ostean **erorketa**. Elizen arteko biblia

Mutikoek orduan ez zekiten oraindik tiroak gero benetakoak izango zirela, eta **erorketak** esanezineko moduko krudelak, eta kartzelaldiak ikaragarri luzeak eta garratzak, eta hiltzen dena bizi osorako hiltzen dela. txanpon berri hura ateratzea haien errepublikaren **erorketaren** une berean gertatu zela Joseba Sarrionandia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Espaziontziak areago egin zuen beheraka, baina oraingoan **erorketa** librean. Bernardo Atxaga

Bake prozesua **erorketa** librean. Berria - Mundua

Gertatu zen don Silveriok **erorketa** txar bat izan eta ospitalera eraman zutela. Bernardo Atxaga

Erorketa ikusgarria izan zela adierazi zuen Igor Gonzalez de Galdeanok, baina zorionez ez zuen minik hartu. Berria - Kirola

Goitik erori zen zaintzailea lozorroan murgilduta zegoen, eta ez zen iratzarri, ez **erorketa** bikoitzarekin, ez eta korrika joan zen familiaren zarata eta garrasiekin ere. Askoren artean

Estatuaren desordena, nahasmendu, **erorketa** erabatekoan, konkistaldiko lapurretetan. Iñaki Iñurrieta

1960an eta 1961ean, dagoeneko, gertatzen dira lehen **erorketak** eta tortura kasu sonatuak, askatasun horren alde borroka egiteagatik. Joseba Zulaika

Zorigaiztoko **erorketa** hartaz semea galdu zuela konturaturik, errudun sentituz bere burua zigortzen hasi zen. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Erorketa usaina zegoen, eta erorketa asko gertatu dira, helmuga atarikoa ikusgarriena. Berria - Kirola

Nagusitzan, **erorketa** arriskua dago; gorespenean, amildegia; mendekoaren apaltasunean, berriz, arimarentzat irabazia. Joseba Sarrionandia

Erorketa-bidezko urkatze honek bazituen abantaila franko. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Belarri minduak zuhaitzetako igali onduak balira bezala elur **erorketaren** bat-bateko soinua entzunik. Felipe Juaristi

Izotz **erorketa** zaratatsurik ez da jadanik itsasertzetik entzunen. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erorketa arriskua (3); **erorketa arriskuak** (3); **erorketa bat** (5); **erorketa baten** (3); **erorketa baten ondorioz** (3); **erorketa eragin** (3); **erorketa eta** (4); **erorketa librean** (4); **erorketak eta** (3); **erorketaren ondoren** (4); **erorketaren ondorioz** (3); **erorketarik gabe** (3); **eta erorketa** (5)

---

erorki *iz* ondarearen zatia.

Ezin ukatua zaio gure herri huntan girixtino fedearen mendez mendeko ekarpena: dela katedrale, eliza fraidetxe, galbario ala kurutzeetan, halako **erorkia** baitauka gaurko herriak lehengoaren oroitgarri. Herria

---

erorkin *iz* hondakina.

Kalamastra bat zirudien **erorkin** zahar hark. Harkaitz Cano

---

erorkor *izond* erortzeko joera duena, erraz erortzen dena.

Burdinazko pendiz zaharkitua, "Second Empire"koa bete-betean, bere hegal metaliko **erorkorrak** eta guzti. Txillardegi

Jainkoaren beraren lankide bezala eta haren Gorputz misteriozkoaren atal **erorkorren** altxatzaile. Askoren artean

Alde bat utzi sorkari **erorkorrak** eta geure geurekoikeriak, Jaunari urrats irmoz jarraitzeko. Joan Mari Lekuona

Filosofoen erregea izan arren, Atenar hau ere jendea da, eta beraz ahula bezain **erorkorra**. Itxaro Borda

Bada tristura more bat, idorra, iharra, izerdi larria bezain hotza, eguerdiko tristura simetrikoa, etxe hutseko tristura parabolikoa, **erorkorra** (azpian deus ez, azpian deus ez!),

geldigorra, gure barrengo laiotzetan aise laketzen den erreka-laino baten tankerakoa. Iñaki Segurola

Ez beste lurraldeetako emakumeak baino **erorkorrago**, arinago edo txarrago direlako, ezbehar handiagoan bizi direlako baizik. Gotzon Garate

Irauteko esperantza gutxiena daukan sasoian -iraungikorrena, itzalkorrena eta **erorkorrena** den garaian- egiten da bere nortasuna egundo ez bezain iraunkor eta are behin-betikoa. Iñaki Segurola

---

erorrarazi ik **erorarazi**.

---

erorrera *iz* erorketa.

Zeren urean eta aire xumean zehar erortzen den guztiak pisuaren arabera azkartu behar baitu **erorrera**, uraren gorputzak eta airearen izaera xumeak ezin dutelako edozer berdin atzeratu. Xabier Amuriza

Tantaren **erorrerak** harria zulatzen du. Xabier Amuriza

---

erortarazi ik **erorarazi**.

---

erorte ik **erortze**.

---

erortze *(orobat **erorte** g.er.)* **1** *iz* zerbait, bere pisuak eraginik beherantz joatea; lurrera erakarria gertatzea, oreka edo euskarria galduz.

Apaltasunez marra sendoak deusezten ditu ibileran **erortze** eta altxatzeen artetik. Joan den asteko erorikoak ostiralean minik ematen ez ziola nabarmendu zuen, eta atzo **erortze** hori gogoratu zuen. Herria

Eta erori egin hintzen eta heure **erortze** horretan aurkitu duk heure justifikazinoa, munduan bertze nehor erori ez balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Zeruraino igotzen zen, nonahi barreiatzen zen, dena betetzen zuen gelatinazko **erortze** harekin eta sakonera handiarekin. Monika Etxebarria

Erortze lasterraren zirimolak inguraturik, hegan ote nindoan lilura sentitu nuen une batez Dolarraren **erortze** kontrolgabeak arazoak ekarriko zizkiela europar eta japoniar ekoizleeiUrrutitik ikusten ziren iparretik hodei lodiak nola zetozen, eta maluta **erortze** zuria hasi zen. Juan Kruz Igerabide

Sinestezinekoa da haren **erortzea**; ez du nork kontsolaturik. Elizen arteko biblia

Desordena ezarri zuen bere familian, eta horrek monarkiaren **erortzea** ekarri zuen. Iñaki Iñurrieta

Haien **erortzea** munduarentzat aberaspide, hau da, haien hutsegitea jentilentzat aberaspide gertatu bada, zenbatez aberasgarriago ez ote da izanen Israel osoak salbamena iristea! Elizen arteko biblia

Niri, berriz, gerra aurretik aita erraten nion gizon garai haren **"erortzeak"** ez zidan zirrara handirik eragin. Alberto Ladron Arana

Ez dakit zenbat bider jausi nintzen eskailburutik, baina **erortzeek** ez zuten amaierarik, ez nuen hondorik jotzen, zorurik gabeko zulo batean behera behin eta berriz amilduko banintz bezala. Juan Kruz Igerabide

Maindirea **erortzearekin** batera, ordea, benetako kontzertuari ekin zioten. Patxi Iturritegi

Austria **erortzearekin** batera, birraitonari errenta hura kendu zioten, hirurogeita hamar urtez jaso zuena. Fernando Rey

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bukaerako kontsonanteen **erortze** eza. Itziar Laka

Iluntasunean desagertu den mozkorraren alderokako ibilera da amiltze eta **erortze** aukera gertagarri baten zantzua. Harkaitz Cano

Euskal semantika guzian oin edo zutik egote/**erortze** zentzuari atxekia ageri baita beti ostiko hitza, nik dakidanez. Patziku Perurena

Hiru urte luzez eliza barnean, zutabeak lehen galeria bermatzeko eta bigarren solairua debekatua **erortze** lanjerarengatik. Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oso diferentea da lurrikara bat, eraikin **erortze** bat, M-11koa bezalako atentatu bat gertatzea, hor gizarte osoa mugitzen delako biktimei laguntzeko. Berria - Euskal Herria

Elur **erortze** batek eraginik izan ote zen ala erorikoak ote zuen eragin elur erortzea, ez da behin ere jakinen. Berria - Kultura

Liluratu lagunak eta nahastu etsaiak mendeku asmatu berriekin: ile-**erortze**, zango-biguntze, mihi-lotze eta beste askorekin. Iñaki Mendiguren

Ohean etzanda esna zegoen euriaren triki-traka etengabeari eta teilatu-hodien tanta-**erortze** txistukariari adi. Lopez de Arana

Ostro irtete, arto ereite; ostro **erortze**, gari ereite. Pello Zabala

---

erortzear *adlag* erortzeko zorian.

Erortzear dago; altxa ezazu. Imanol Unzurrunzaga

Hiria babiloniarren menpe **erortzear** dago. Elizen arteko biblia

Donostia **erortzear** baldin bazegoen, zer egin behar ote nuen nik han. Inazio Mujika Iraola

Ajuriagerraz batez ere, zeinaren txofer izateko suertea izan zuen Bilbo **erortzear** zegoela. Ramon Saizarbitoria

Zenbait tokitan, elurrak fantasiazko figurak sortzen zituen maldetan edo erpinetan: **erortzear** zeuden uhinak, tximiniak, itsasontziak. Bernardo Atxaga

Ametsean, Lateranoko basilika **erortzear** zegoela ikusi zuen. Askoren artean

Sugarren artean, bazirudien poxpolo hark infernu hartara **erortzear** zela zera adierazi nahi zukeela, norberaren etxea bezalakorik ez dago, edo azkenik etxean. Harkaitz Cano

Ate gaineko iragarki koloretsuari bi letra falta zaizkio, eta beste bat **erortzear** dago. Iban Zaldua

Eta intxixuak ere badaude, gehienak joskinak gainera; eta azpitik erreka duten leizeak, eta sei anaia nagusi dituzten printzeak, eta **erortzear** dagoen txabolatxo bat. Julen Gabiria

Ospitalea da lehengo basetxe bat **erortzear** dagoena eta hor nahi luke artista bikoteak altxatu arte lantoki ideki bat. Herria

Orain leihotik dakusadan paisaiak, hodei beltzen zamaz **erortzear** dirudien zeruak eta haren kontra aparrezko haserrea jaurtitzen duen itsaso arbelezkoak ez lukete nire gogoa goibeltzeko botererik. Ramon Saizarbitoria

Zergatik deuseztatu behar zuten beren esku **erortzear** zegoena? Lutxo Egia

Gizonezko bati besotik helduta zihoan emakume batekin egin du estropezu gogorki, emakumezkoa **erortzear** egon da, eskerrak laguntzaileak besapetik oratu dion. Joxemari Iturralde

Mugarri gutxi geratzen dira jada zutik, eta orain azken urteetan altxatu den mugarri sendoenetako bat **erortzear** da. Berria - Harian

Iheslaria, gehiago ezinean eta beldurrak herbaldurik, **erortzear** zen ia. Josu Zabaleta

Erortzear direnei Jaunak die eusten, lur joak ditu altxatzen. Elizen arteko biblia

Oinarria kenduta, gain aldea eta paretak oker, balantzaka eta **erortzear** dituen gaztelu bat ematen zuen. Gotzon Garate

Giza bizia begien aurrez lurrean trakeski zetzanean, erlijio astunak zapaldua, zeinaren burua itxura beldurgarrian ortzi inguruetatik hilkorren gainera **erortzear** ageri baitzen,

greziar gizon bat ausartu zen lehenen, bere begi hilkorrak altxatzen eta aurka egiten. Xabier Amuriza

Detektibea, nonbait, Diru jaunaren hatzaparretara **erortzear** zekusan. Migel Angel Mintegi

Oker eta **erortzear**, basoak, sasiak eta errekako hezetasunak janda, baina zutunik. Hasier Etxeberria

---

erosahalmen ik **erosi 5**.

---

erosarazi, erosaraz, erosarazten du *ad* erostera behartu.

Flobert fusil bat **erosarazi**, eta iltze batetik eseki zuen hantxe bere bulegoan. Juan Garzia

Paseoan inolako helmugarik gabe ibiltzen ziren kaleetan, Balbok berari jostagarri zitzaizkion soinekoak eta zapatak **erosarazten** zizkion andreari, edo dantza egitera joaten ziren night clubetara. Fernando Rey

Ni, hemen Ameriketan, atso zahar irrigarri bati itsuskeria bat **erosarazteko** makurkeriaz gozatzen. Ramon Etxezarreta

Institutuko ikasleei **erosaraziko** diet etxean irakur dezaten udan zehar. Jon Arretxe

Nork bestela **erosaraziko** zigun, ba, liburu haginkari bat? Iñaki Mendiguren

---

erosdun ik **erostun**.

---

erosezin *izond* ezin erosizkoa.

Merkataritzaren alderditik begiratuta ere pozik senti zitekeen aita, dohain sarritan **erosezinak** semearentzat lortu izanaz. Irene Aldasoro

Kutxaren aurrean eseririk, atsegin handiz igurtzi zituen eskuak, hala nola igurtzitzen baititu zemstvoko bake-epaile **erosezinak** auzitegirantz abiatu aurretik ahamen bat jateko asmoz mahaira hurbiltzen denean. Jose Morales

Bertute hauek guztiona den egia eta jakituria berean bizi dira modu **erosezinean**. Imanol Unzurrunzaga

---

erosgai *(**17** agerraldi, **6** liburu eta **10** artikulutan) iz* **1** salerosketa baten gai izan daitekeen gauza. ik**salgai; salerosgai**.

1964an izan zen Lizarran garaztar batzuek muntatu erakusketa bat, **erosgai** anitzekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Atsegin apur bat hartzen du hark **erosgaiak** kutxako mahai aurrean nola husten dituen ikusita. Oskar Arana

Herrialde osoan ibiltzen zen, bere **erosgaiak** salduz. Juan Kruz Igerabide

Gutxienez entzun ezazue zuek laguntza eman dezazuen dauzkagun arrazoiak, **erosgaia** ikusirik. Jon Alonso

Erosgai guztiak Iranetik kontrabandoan ekarriak ziren, Bagdadek enbargoa ipinia baitzien Barzani gure buruzagiak kontrolatzen zituen lurraldeei. Juan Kruz Igerabide

2 (adizlagun gisa)

Erosgai dauden temak oso gutxi eta oso normalak dira: informazio orokorra, zientzia eta teknologia, kultur gogoeta eta askoz gehiago ez. Berria - Euskal Herria

Bestalde, %3,04 irabazi arren **erosgai** jarraitzen duen Endesa argindar enpresak eta %1na pasa irabazitako BBVA, Repsol-YPF eta Iberdrola Òblue chipÓ-ek izan zuten zeresanik gehien. Berria - Ekonomia

Gaurko finalerdirako sarrerak agortuta badaude ere, nahi duenak oraindik **erosgai** ditu biharko Txekia eta Greziaren arteko partidakoak. Berria - Kirola

Hepburnen bilduma pribatuko lan ugari ere izango dituzte **erosgai** bildumazaleek: Robert Henri eta Toulouse-Lautrecen obrak, besteak beste. Berria - Kultura

Liburua salgai-**erosgai** dagoen produktua da. Berria - Kultura

---

erosgailu *iz* erosgaia.

Egoitza eraikitze hauetan partikularrak dira asmatzaileak eta ez dira, entzun dugunaz, aloiamendu eta **erosgailu** merkeak izanen. Herria

---

erosi, eros, erosten **1** du *ad* ordainketaren bidez zerbait eskuratu.

Elkarrekin negoziatzen duten bi nazio elkarren mendeko bihurtzen dira: batak **erosteko** interesa badu, besteak saltzekoa, eta batasun guztiak elkarren premiaren gainean oinarritzen dira. Iñaki Iñurrieta

Aldea honetan datza, beste gauzak mailegatu edo **erosi** egin daitezkeela; dirua, berriz, gauzen prezioa denez, mailegatu bai baina ez da **erosten**. Iñaki Iñurrieta

Arabiarrek aberastasun handiak zituzten: itsaso eta basoetatik ateratzen zituzten, eta, gutxi **erosten** eta asko saltzen zutenez, auzokoen urre-zilarrez jabetzen ziren. Iñaki Iñurrieta

Jostailua **erostea** gauza erraza da; egokia aukeratzea da zaila. Berria - Euskal Herria

Erosi aurretik, besteak beste, jostailua arriskutsua edo garestia den, bete beharreko segurtasun arauak betetzen dituen, oharrak ulertzeko moduan idatzita dauden eta jolasteko aukera asko ematen dituen aztertu beharko dugu. Berria - Euskal Herria

Erosi ezer ez, eta saldu, gutxi. Berria - Kirola

Ez daki oso ondo zertarako **erosi** duen ere. Imanol Zurutuza

Elton Giovanni erdilari brasildarra **erosi** zuen iragan azaroa bukaeran, azokaren atarian. Berria - Kirola

Atletico Madrilek, halaber, Ortiz berriro **erosteko** aukera du, Osasunak ordaintzen duenaren bikoitza ordainduta. Berria - Kirola

Akzioak **erosten** 5.000 dolar gastatzea deliberatu zuen. Pello Salaburu

Baskoniako zaleek Koparako 400 abonu **erosi** dituzte lehen egunean. Berria - Kirola

Horietako askok 3000 pezta pagatuta **erosi** behar izandu du liburua. Patziku Perurena

Gotorlekua isolatua gelditukо zen, eta gotorlekukoek ezin izango zuten ezer **erosi**, ez saldu. Elizen arteko biblia

Bai Beninen eta bai hemen inguruko beste herrietan ere, gero eta haur gazteagoak **erosten** dira esklabo lanetarako. Berria - Gaiak

22 hektara lur **erosi** zituen duela bi urte, Gixonainea etxaldean, 170.000 eurotan. Herria

Laborariek galdegin diote Xan Lambert auzapezari herriak **eros** dezan lur peza hori, ondotik herritar gazte bati saltzeko ber-prezioan, gazte batek herrian bizitzeko xantza ukan dezan. Herria

Zer dela-eta ematen dien dirua gobernu laborista batek aberatsei Galesen etxeak **eros** ditzaten? Berria - Mundua

Erosten dituzte gaztelu hondatuak eta harriz harri eremaiten dituzte Ameriketara, han gaztelu berri bat eraikitzen harri zaharrekin. Herria

Open-market eragiketak, alegia, zor publikoa **erosiz** edo salduz. Iñaki Heras

Iranek informazio nuklearra **erosi** zuela onartu zuen atzo Hamid Reza Asefi Atzerri ministroak. Berria - Mundua

Diru horrekin bere izen ona **erosten** du neskak; prostituzioa utzitakoan etxera bueltatu ahal izateko. Berria - Gaiak

Zenbait lekutan, gainera, **erositakoa** itzultzeko aukera ematen dute, ondo egon arren. Berria - Euskal Herria

Enpresa horiek ezin dute Kubako lehengairik duen produkturik **erosi**. Berria - Harian

Zure dendarako salgaiak **erostera**? Koro Navarro

Herbehereetan 2003an baimendu zuten kalamua: pote bakoitzak 50 euro balio du eta hain garestia izatean, askok ez dute **erosten**. Berria - Harian

Emaztea nigana etortzen da hamar libra ikatz **erostera**. Koro Navarro

Segidan herrira joan zunan, botila bat ardo **erostera**. Joan Mari Irigoien

Gozotegira joan ginen hirurok, nire gozokirik gogokoena **erostera**: kremazko bonba. Juan Kruz Igerabide

Gisa berean, saltzera datorren ontasun pribatu bat **eros** dezakete herriko etxeek, legeak horretarako emaiten dioten "lehentasuna" baliatuz. Herria

Zoaz Zeldarengana, kalearen bestaldera, eta **eros** ezazu laurden bat esne irakin. Koro Navarro

Egunkariren bat **erosten** saiatu naiz. Edorta Jimenez

Bazen tren bat Krakoviara ateratzekoa zena, eta txartel bat **erosi** nuen. Koro Navarro

Jauna, jauna, **eros** iezadazu uso pare hau. Karlos Zabala

Tximino handi bat **erosi** omen zien feniziar saltzaile batzuei. Josu Zabaleta

-Zerri-gantza **erosiko** didazu? -galdetu zion etxekoandreak, atzetik segika. Jose Morales

Gauzak behar bezala egiteko, telefonotik zuzenean grabatzeko aparatu bat **erosi** nuen. Ramon Saizarbitoria

-Kaixo Merivale, ez nekien zuk ere Brooks´-en **erosten** zenuenik arropa. Lopez de Arana

-Ezer **erosi** du Lucius Malfoyk? -galdetu zuen Weasley jaunak zorrotz haien atzetik. Iñaki Mendiguren

-Ze jertse polita **erosi** dizun amatxok, e? Arantxa Iturbe

Saltxitxa beroak gosaritarako **erosten**. Karlos Zabala

Berriz hasi da jendea liburuak oparitarako **erosten** -jakinarazi zion, pozik-. Jon Muñoz

Jatetxe txukunen bat **erostea** bagenu edo errepideko ostaturen bat... horixe duk guk nahi duguna! Lopez de Arana

Klinika pribatu hura **erosi** zuen eta handik aurrera huraxe izan zuen denborapasa nagusia, esperimentazio klinika bat martxan jartzea. Joxemari Iturralde

Mittal Steelek 18.600 milioi euro eskaini ditu Arcelor **erosteko**. Berria - Ekonomia

Horren ondorioz prezioek -produktu eta zerbitzuak **erosteko** ordaindu beharreko diru kopuruak, alegia- gora egiten dute. Iñaki Heras

Artea saldu eta **erosteko** negozioan halako familia-tradizio luze moduko bat iradokitzen zuela. Oskar Arana

Erosteko gogoa agertu zenuen. Oskar Arana

Aurtengo igoerak ere ez du **erosteko** ahalmena bermatzen. Berria - Ekonomia

ik beherago 5. Askoren artean

Ikasliburuak **erosteko** diru laguntzak jasotzen dituzte familiek. Berria - Harian

Ez zuten **erostekorik** ezer aurkitu. Askoren artean

Panteoi bat **erostekoak** baikinen luze baino lehen. Ramon Saizarbitoria

Neuretzat ere **erosi** dut zerbait: emakume afrikar bat irudikatzen zuen latoizko brotxe fin bat. Patxi Zubizarreta

Taibele bere lagunekin aulkian eserita zegoen, kalez kaleko saltzaile bati **erosi** zion liburu bateko istorio bat kontatzen. Koro Navarro

Lepoa egingo nuke Txitxikovek **erosi** dituen mujik horiek, lapur hutsak eta mozkor porrokatuak ez badira, alfer gorotzak eta liskarzale amorratuak direla. Jose Morales

Soroa **erosi** dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren. Elizen arteko biblia

Halako batean Alemaniako gobernuak bere askatasuna **erosi** zuen. Edorta Jimenez

Balio duena ordainduz **erosi** nahi dizut. Elizen arteko biblia

Bidezko dena ordainduz **erosi** nahi dizut. Elizen arteko biblia

Emakumea objektu bat bezalakoa baldin bazen gizonarentzat, objektu sexuala, **erosi** egiten zena askotan, akatsik gabea nahi zen. Mikel Hernandez Abaitua

Seguraski, Moskun **erosia**. Jose Morales

Aitak **erosiak** izan behar zuten. Koldo Izagirre

"Business Création" deitzen da Baionako Sony lantegia **erosia** duen enpresa. Herria

Etxe hori herriak **erosia** duela hogoita-zonbait urte. Herria

Aurrerapenak produktibitatea arras goititurik ere jende oro lanean eta lehenean edukiarazi beharra zegoen, jenero edo salgaien produkzio goitituak nork **erosia** izan zezan. Iñaki Segurola

Ainitzek badituzte etxeak hor gaindi **erosiak**. Herria

Zeren eta, ez al zaizu iduritzen, jaun André, ezen **erosten** ditugun edo geure ingururat biltzen ditugun objektuak, geure arimaren isla izan daitezkeela. Joan Mari Irigoien

Amatxok Hearn´s-en **erositako** jantzi eskoziarraren sorbaldakoan brotxe moduko zilarrezko kardu bat erakusten zuen. Lopez de Arana

Erositako prezioan saltzen dizkizuet. Juan Garzia

Bidaiaren batetik itzultzen zenean, geltokietako kioskoetan **erositako** polizia-nobelak ekartzen zituen eta arratsaldeetan bere estudioan bukatzen zuen haien irakurketa. Fernando Rey

Zapatila berriak izaten ziren, bereziki eskolara joateko **erositakoak**, baina zapatilak. Ana Urkiza

Altzariak ez ziren merkealdietan **erositakoak**. Migel Angel Mintegi

-Bilatu gabe, daukazun altxorra da; eduki gabe, bilatzen duzun altxorra da; ez dago **erosterik**; baina ordaindu egiten da. Patxi Zubizarreta

Tratulantak pasatzen ziren: lehen aldian, saltzaileei onomatopeiaka hitz eginez, bildots metatuei ez zieten behakorik ere botatzen, hauek *otoi* ***erosika*** hasi arte bederen. Itxaro Borda

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Industriaren porrota, ondoren, osorik **erositako** lantegiak beren ahalmenetatik oso behera geratu baitira, ez baitira gai izan tokiko eskarira egokitutako ondasunak ekoizteko. Koro Navarro

Ordaindu egiten dute txoriak bizirik **erosteagatik**. Jon Maia

Veneziarrek eskura duten gehiena bezala, lapurtua ez bada, garesti **erosia** bestela. Felipe Juaristi

Batzuetan ahalke emangarria ere gertatzen da nola pasatzen dizkiguten Valentzian edo Andaluzian egindako programa batzuk, merke **erosiak** direla esanez gainera. Pello Salaburu

Merke-zurrean **erositako** gerriko estuegi batek atximurkatutako tripa. Antton Olano

Baziren lehen planoak eta urrutikoak, baziren argazki difuminatuak, desfokatuak, Fotomaton enpresetatik ebatsiak edo diru bereiziekin ilegalki **erosiak**. Harkaitz Cano

Bixigarriak, mota bateko eta bestekoak, libraka ez baina arroaka **erosi** zituztela zirudien. Patxi Ezkiaga

Aurrez **erosiriko** sarrera horien guztien dirua Euskalduna jauregian bertan itzuliko diete kaltetuei. Berria - Kultura

Handizka **erosten** dugu. Oskar Arana

Baserrietako xungoa gotorra zen eta adiskideak, bazterren ez sutzeko, laborarienganako elkartasunez bortxaz bezala **erosi** zuen. Itxaro Borda

Honela **erosi** zituen Josek Egiptoko lur guztiak faraoiarentzat. Elizen arteko biblia

Galdeketaren helburua da jakitea herrialde hortako bizi lagunak intresatuak litaizkenetz etxe ekoizpenak [...] zuzenean **erosteaz**. Herria

· Paper horiek lau durotan **erosten** dira merkatu beltzean, jaunak! Karlos Linazasoro

Berrogei durotan **erosi** zuen bere lehen esku soinua, Eibarren. Koldo Izagirre

Bihar, ordu honetan huskeria batean **erosi** ahal izango dituzue Samariako merkatuan zazpi kilo irin garbi nahiz hamalau kilo garagar. Elizen arteko biblia

3 (era burutua izenondo gisa)

Teknologia **erosia**, saltzen zuen herrialdeko ingeniariek eta teknikariek egin, ezarri eta kontrolaturiko makina-sistemetan txertatua. Koro Navarro

Gela nagusian zeukan koadro **erosi** berria erakutsi zion hatzaz Valerie-ri. Oskar Arana

Hortz ez zainduak, ikatz pagatu gabea, bularreko min ezin osatuzkoak, haur-zapata ez **erosiak** Pablo Sastre

4 norbaiten borondatea bereganatu eta harenganik bidezkoa ez den zerbait lortu sariren baten truke.

Juduen asmoak desegiteko, errege-kontseilariak **erosi** egin zituzten. Elizen arteko biblia

Bertatik luzatzen zituen Himmlerren zerbitzu sekretuak bere garro beltzak Europa erdian zehar, kazetariak **erosiz**, politikari ustelak bultzatuz, lider deserosoen hilketak aginduz. Alberto Ladron Arana

Ogi puska bat gehiago edo zopa urtsuaren errazio bikoitza lortzeko, presoek zaindariak nola **erosten** zituzten kontatu zidan. Koro Navarro

Hala «kontrako zelaian, arbitroa **erosita** jokatzen» ari direla iritzi dio Uriak. Berria - Euskal Herria

5 ***eros ahalmen*** *(orobat* ***erosahalmen****)* erosteko ahalmena.

Langileak **eros ahalmena** galtzen ari direla azpimarratu zuen. iaz prezioak uste baino %0,8 gehiago igo zirenez, galdutako **eros ahalmena** ordainketa bakarrean konpentsatuko du hurrengo egunotan Madrilgo gobernuak. Berria - Ekonomia

LABek soldaten **eros ahalmenaren** hobekuntza defendituko du negoziazio kolektiboan. Berria - Ekonomia

Erretiro pentsiodunek gaur berreskuratuko dute iaz galdutako **eros-ahalmena**. Berria - Ekonomia

Bestetik, agente ekonomikoei ere seinale bat igortzen die, inflazioa handitzea ez duela onartuko adieraziz eta, beraz, euroa **eros ahalmena** babesteko txanpon egonkorra dela agertuz. Berria - Harian

Deitoratuz ere lanpostu galtzeak eta **eros-ahalmenaren** ttipitzea. Herria

6 ***eroste ahalmen*** erosteko ahalmena.

Bizi-kalitateak, ordea, **eroste ahalmenaren** alderdi kuantitatiboaz gain, gizarte bateko norbanakoen harreman esparrua osatzen duten gizarte, ekologi eta, besteak beste, kultur alderdiak jasotzen ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gure **eroste-ahalmena** areagotuko da etorkizun hurbilean ere. Edorta Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

bat eros (12); **ere eros** (7); **eros ahalmena** (7); **eros ahalmenaren** (6); **eros daiteke** (12); **eros daitezke** (18); **eros dezakezu** (5); **eros dezan** (7); **eros ditaizke** (7); **eros eta** (11); **eros ezazu** (10); **eros nezakeen** (6); **eros zitezkeen** (7); **eta eros** (16); **zer eros** (5)

akzio erosi (10); **akzioak erosi** (11); **bana erosi** (5); **bat ere erosi** (8); **bat erosi** (275); **bat erosi behar** (20); **bat erosi du** (20); **bat erosi dut** (15); **bat erosi eta** (24); **bat erosi genuen** (5); **bat erosi nahi** (6); **bat erosi nuen** (28); **bat erosi zion** (10); **bat erosi zuen** (40); **bat erosi zuten** (5); **batean erosi** (17); **batek erosi** (16); **batek erosi zuen** (6); **bati erosi** (11); **batzuk erosi** (41); **batzuk erosi ditut** (5); **batzuk erosi nituen** (5); **batzuk erosi zituen** (6); **berak erosi** (8); **berri bat erosi** (6); **berria erosi** (15); **berriak erosi** (13); **bi erosi** (6); **bruselan erosi** (7); **dena erosi** (6); **du erosi** (7); **edo erosi** (7); **egunkaria erosi** (25); **egunkaria erosi eta** (7); **ere erosi** (34)

erosi ahal (77); **erosi ahal izan** (13); **erosi ahal izango** (38); **erosi ahal izateko** (18); **erosi ahalko** (7); **erosi aurretik** (10); **erosi baino** (7); **erosi behar** (108); **erosi behar dute** (5); **erosi behar izan** (19); **erosi behar zuen** (5); **erosi beharko** (43); **erosi beharrean** (7); **erosi berri** (25); **erosi berri du** (5); **erosi berri duen** (9); **erosi berria** (18); **erosi berriak** (6); **erosi dio** (11); **erosi diot** (8); **erosi ditu** (40); **erosi dituen** (8); **erosi ditugu** (6); **erosi ditut** (20); **erosi dituzte** (17); **erosi dizkiot** (6); **erosi du** (85); **erosi du eta** (6); **erosi dudan** (9); **erosi duela** (11); **erosi duen** (17); **erosi duena** (5); **erosi dugu** (5); **erosi dut** (38); **erosi dute** (11); **erosi duten** (5); **erosi duzu** (10); **erosi edo** (17); **erosi egin** (42); **erosi egin behar** (10); **erosi egin zuen** (6); **erosi egingo** (14); **erosi egiten** (16); **erosi eta** (185); **erosi eta gero** (5); **erosi ez** (15); **erosi ezin** (7); **erosi gabe** (17); **erosi genituen** (9); **erosi genuen** (23); **erosi izan** (12); **erosi izana** (14); **erosi nahi** (117); **erosi nahi du** (7); **erosi nahi duela** (5); **erosi nahi izan** (13); **erosi nahi zuen** (11); **erosi nahian** (8); **erosi nahiko** (5); **erosi nian** (8); **erosi nion** (12); **erosi nituen** (42); **erosi nuen** (89); **erosi ohi** (5); **erosi omen** (8); **erosi ondoren** (12); **erosi ostean** (8); **erosi zidan** (9); **erosi zien** (8); **erosi zion** (45); **erosi zioten** (7); **erosi zituela** (6); **erosi zituen** (89); **erosi zituzten** (23); **erosi zizkion** (18); **erosi zizkioten** (6); **erosi zuela** (19); **erosi zuen** (200); **erosi zuen eta** (12); **erosi zuena** (9); **erosi zuenean** (10); **erosi zuenetik** (7); **erosi zuten** (33)

eskubideak erosi (14); **eta erosi** (43); **eta erosi egin** (7); **etxe bat erosi** (14); **etxea erosi** (19); **etxeak erosi** (6); **etxebizitza erosi** (5); **eurotan erosi** (18); **ez erosi** (12); **ezer erosi** (14); **gabe erosi** (5); **gehiago erosi** (9); **guztia erosi** (5); **guztiak erosi** (9); **handi bat erosi** (9); **hau erosi** (5); **hori erosi** (13); **horiek erosi** (6); **horregatik erosi** (5); **hura erosi** (12); **lantegia erosi** (5); **liburu bat erosi** (7); **liburu erosi** (9); **liburua erosi** (10); **liburuak erosi** (5); **lurrak erosi** (8); **merke erosi** (5); **merkeago erosi** (5); **milioi eurotan erosi** (9); **nik erosi** (6); **non erosi** (10); **nork erosi** (5); **opariak erosi** (6); **pakete bat erosi** (5); **saldu eta erosi** (5); **sarrerak erosi** (6); **taldea erosi** (9); **truke erosi** (7); **txartel bat erosi** (6); **txartela erosi** (9); **txartelak erosi** (7); **txiki bat erosi** (8); **urte erosi** (5); **zer erosi** (17); **zerbait erosi** (13); **zerbait erosi nahi** (5); **zergatik erosi** (7); **zuen erosi** (5)

bat erosia (8); **bat erosiko** (35); **bat erosiko dut** (7); **bat erosirik** (8); **bat erosiz** (8); **dendan erositako** (6); **en erositako** (5); **ere erosiko** (9); **erosia du** (8); **erosia izan** (6); **erosia nuen** (5); **erosia zuen** (14); **erosiak izan** (5); **erosiko diat** (6); **erosiko dio** (11); **erosiko ditu** (20); **erosiko dituela** (8); **erosiko ditugu** (7); **erosiko du** (19); **erosiko duen** (7); **erosiko dugu** (10); **erosiko dut** (15); **erosiko lituzke** (5); **erosiko zuen** (6); **erositako prezioan** (9); **erosiz eta** (7); **erosiz gero** (15); **ezer erosiko** (5); **herriak erosia** (8); **nork erosiko** (8)

akzioak erosteko (17); **arcelor erosteko** (5); **armak erosteko** (7); **artelanak erosteko** (7); **bat erostea** (42); **bat erostea erabaki** (7); **bat erostean** (6); **bat erosteko** (74); **bat erosteko adina** (6); **baten erostea** (11); **baten erosteko** (13); **batzuk erosteko** (5); **berri bat erosteko** (5); **berria erosteko** (9); **berriak erosteko** (11); **botikak erosteko** (5); **droga erosteko** (5); **du erosteko** (6); **egindako erosteko** (12); **egindako erosteko eskaintza** (12); **endesa erosteko** (9); **erostea aztertzen** (5); **erostea aztertzen ari** (5); **erostea dela** (5); **erostea erabaki** (19); **erostea eta** (12); **erostea nahi** (5); **erostea proposatu** (6); **erosteari ekin** (6); **erosteaz gain** (6); **erosteko adina** (18); **erosteko adina diru** (6); **erosteko ahalbiderik** (5); **erosteko ahalmena** (36); **erosteko asmoa** (14); **erosteko asmorik** (6); **erosteko asmoz** (5); **erosteko aukera** (58); **erosteko aukera izango** (7); **erosteko beste** (5); **erosteko diru** (7); **erosteko dirua** (19); **erosteko dirurik** (24); **erosteko dirurik ez** (12); **erosteko duten** (6); **erosteko erabili** (6); **erosteko erabiliko** (5); **erosteko ere** (13); **erosteko eskaintza** (105); **erosteko eskaintza egin** (10); **erosteko eskaintza publiko** (16); **erosteko eskaintza publikoa** (41); **erosteko eskaintza publikoak** (6); **erosteko eskaintza publikoari** (5); **erosteko eskubidea** (6); **erosteko eta** (17); **erosteko gogoa** (8); **erosteko interesa** (9); **erosteko joera** (5); **erosteko maileguak** (5); **erosteko modua** (5); **erosteko moduan** (5); **erosteko prest** (8); **eskubideak erosteko** (6); **eta erostea** (6); **eta erosteko** (13); **etxe bat erosteko** (6); **etxea erosteko** (14); **etxebizitza erosteko** (25); **ez erostea** (6); **ez erosteko** (6); **ezer erosteko** (5); **gauzak erostea** (5); **guztiak erosteko** (5); **hori erosteko** (5); **horiek erosteko** (6); **hura erosteko** (9); **ikasliburuak erosteko** (5); **janaria erosteko** (7); **kluba erosteko** (5); **konpainia erosteko** (5); **liburuak erosteko** (11); **lurrak erosteko** (8); **ogia erosteko** (6); **sarrerak erosteko** (5); **txartela erosteko** (5); **txartelak erosteko** (10)

armak erosten (5); **asko erosten** (5); **bat erosten** (45); **bat erosten du** (9); **bat erostera** (31); **bat erostera joan** (5); **batzuk erosten** (7); **batzuk erostera** (8); **berak erosten** (7); **berean erosten** (5); **berriak erosten** (5); **ere erosten** (12); **erosten ahal** (20); **erosten ahalko** (24); **erosten ahalko dira** (11); **erosten ari** (20); **erosten badu** (6); **erosten da** (10); **erosten den** (8); **erosten dio** (6); **erosten dira** (8); **erosten diren** (7); **erosten ditu** (17); **erosten dituen** (5); **erosten ditut** (10); **erosten dituzte** (18); **erosten dituzten** (7); **erosten du** (25); **erosten duen** (9); **erosten duenak** (7); **erosten dugu** (7); **erosten dugun** (6); **erosten dut** (12); **erosten dute** (13); **erosten edo** (5); **erosten ere** (5); **erosten eta** (11); **erosten ez** (10); **erosten hasi** (11); **erosten nuen** (6); **erosten saiatu** (7); **erosten zituen** (28); **erosten zituzten** (18); **erosten zizkion** (5); **erosten zuen** (19); **erosten zuten** (5); **erostera eta** (8); **erostera etorri** (6); **erostera joan** (22); **erostera joan zen** (5); **erostera joaten** (9); **erosterik ez** (6); **eta erosten** (11); **etxebizitza erosten** (5); **eurotan erosten** (5); **ezer erosten** (7); **garesti erosten** (5); **garia erostera** (14); **gauzak erosten** (6); **gehiago erosten** (6); **hori erosten** (5); **hura erosten** (5); **nola erosten** (5); **non erosten** (7); **ogia erosten** (9); **ogia erostera** (5); **tabakoa erostera** (6); **txartelak erosten** (5); **zer erosten** (5); **zerbait erosten** (5); **zerbait erostera** (7)

---

erosio **1** *iz* higadura.

Erosioaren atzekoz aurrerako bidea da, nolabait, denboraren iragaitea. Hasier Etxeberria

Denboraren **erosioak** kritikak ekarriko dizkio Marcosi, baina ezin ukatuko dio inork komunikaziorako gaitasuna, hitz zehatzak erabiltzeko abildade fina, Patri. Hasier Etxeberria

2 (geologian)

Haizearen eta uraren **erosioa** jasan duen mendiaren itxura. Berria - Gaiak

Lurraren **erosioak** eta mugimenduek izanen zitean horretan ere zerikusirik. Joan Mari Irigoien

Txinako Gobernuaren arabera, ekologia arazoek, haize handiak, gazitzeak, lurraren **erosioak** eta basoen kalitate eskasak eragin dute desertifikazioa azkartzea. Berria - Gaiak

Gaur egungo arazoa da lurren **erosio** latza, hain justu, materia organikoen faltagatik. Berria - Euskal Herria

Brownlee eta bere lankideek galdetzen dute azaleko ezaugarriok **erosioaren** bidez zergatik ez diren ezabatu, baina erantzuna Wild 2 kometaren historian datza. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan)

Alde batetik, azken hogeita hamar urteotan zientziak eta teknologiak **erosio**-prozesu moduko bat jasan dute, izan ere, zientziak galdua du jada Industria. Askoren artean

· Pixkanaka-pixkanaka Mars Expressen datuak ñabardura handiko topografia erakusten ari dira, eta jakina, honen ondotik, ur **erosioak** eta sumendi aktibitateak Marteko azaleran izan duen eragina ikertzea izango da hurrengo lana. Berria - Gaiak

---

eroska ik **eroxka**.

---

eroskeria 1 *iz* norbaiten borondatea bereganatzea eta harenganik bidezkoa ez den zerbait lortzea sariren baten truke.

Erosterik ez bazuten, beste bide batzuetatik eskuratzen zituzten: lapurreta, **eroskeria**, xantaia. Jon Muñoz

Ustelkeria, diru desbideraketak, **eroskeria**. Berria - Mundua

Sexu jazarpena eta **eroskeria** ere leporatzen zioten lankideek. Berria - Mundua

Gurean iruzurra eta **eroskeria** egonda, nor gara gu palestinarrei label demokratikoa eskatzeko? Berria - Mundua

Azken hilabeteetan NBEko kideen ustezko ustelkeria, **eroskeria** eta sexu gehiegikeria eskandaluen berri zabaldu da eta Kofi Annan idazkari nagusiari haiek estali nahia leporatu diote. hilketa politikoek markak hausten dituzte eta botoen **eroskeriak**, hauteskunde ontzien lapurretak eta ustelkeria mota guztiak kontu arrunta dira. Berria - Mundua

Hilketa politikoek markak hausten dituzte eta botoen **eroskeriak**, hauteskunde ontzien lapurretak eta ustelkeria mota guztiak kontu arrunta dira. Berria - Mundua

Norm Coleman senatari errepublikanoak jakinarazi zuenez, orotara 21.000 milioi dolar eskuratu zituen presidenteak kontrabandoaren eta **eroskeriaren** bidez. Berria - Mundua

Ustez **eroskeriaren** estaltzaile izan ziren sei akusatuak prozeduratik kanpo uzteko eskatu du. Berria - Euskal Herria

Iturri ofizialen arabera, atxilotuak Lan Ministerioaz baliatzen ziren **eroskerien** truke isunak kentzeko eta ikerketen emaitzak aldatzeko. Berria - Mundua

Agintekeria, deklarazio faltsuak egitea, legea urratzea, **eroskeria** egitea, mafiarekin lotura izatea. Berria - Harian

Ez du alderdikeriaz jokatzen, ez **eroskeriarik** onartzen. Elizen arteko biblia

Diruzaleak bere etxea hondatzen du, **eroskeria** gorroto duena luzaro biziko da. Elizen arteko biblia

Eroskeria eta iruzurra egiteagatik auziperatu dute Un-Yong Kim, NOPeko presidenteorde ohi korearra. Berria - Kirola

Milango Fiskaltzak ekainerako deklaratzera deitu du **eroskeriagatik**. Berria - Harian

Jean-Louis Gergorin enpresaburuak ustez **eroskerian** nahasitako politikarien zerrenda eman zien zerbitzu sekretuei. Berria - Harian

Esparru guztietara zuzendurik UPNk eta CDNk egindako politika salatu zuen EAko lehendakariak eta «jauntxokeri demokratikoa» zein **«eroskeria** politikoa» egotzi zien. Berria - Euskal Herria

Ustezko **eroskeriagatik**, Ariel Sharonen dimisioa nahi du Alderdi Laboristak. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fiskalak eta defentsek, berriz, **eroskeria** delituak preskribitu egin duela eta epaiketa bertan behera uzteko erregutu dute. Berria - Euskal Herria

Eroskeria delituaren zigor nagusia espetxea eta inhabilitazioa dira. Berria - Euskal Herria

Eroskeria kasu bategatik atxilotu zuten. Berria - Kirola

Etxegintza arloko ustelkeria eta **eroskeria** kasuetan. Berria - Mundua

Azken hilabeteetan presiorik edo **eroskeria** proposamenik jaso al duzue gobernuaren edo transnazionalen aldetik? Berria - Mundua

Guardia Zibilak Ondarroako zortzi ontzijabe eta arrantza ikuskatzaile bat atxilotu zituen orain bi aste, eta bazterrak nahasi dituzte **eroskeria** susmoek. Berria - Ekonomia

Israelgo lehen ministro Ariel Sharonen kontrako **eroskeria** salaketaren prozesua bertan behera uzteko asmoa du fiskal nagusi Menachem Mazuzek. Berria - Mundua

Aita zein semearen kontra egin dira ustelkeria eta **eroskeria** akusazioak. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Boto **eroskeria**, hautestontzi lapurreta eta bestelako irregulartasunak izan zirela salatu zuten atzoko bozka zaindu zuten behatzaileek. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten eroskeria (3); **eroskeria delitua** (14); **eroskeria delitua iraungi** (3); **eroskeria delituak** (12); **eroskeria delituak preskribitu** (7); **eroskeria delituaren** (5); **eroskeria delituaren estaltzaile** (4); **eroskeria egitea** (3); **eroskeria eta** (8); **eroskeria onartu** (3); **eta eroskeria** (5); **kontrako eroskeria** (3); **leporatzen zitzaien eroskeria** (3); **zitzaien eroskeria** (4); **zitzaien eroskeria delitua** (3)

---

eroskeriazale *izond* eroskeriaren zalea dena.

Agorra da sinesgabeko jendea, suak suntsituko ditu **eroskeriazaleen** etxeak. Elizen arteko biblia

---

erosketa 1 *iz* erostea. ik **salerosketa**.

Eskua alkandoraren bularraldeko poltsikora sartu eta kutxa luze estua atera nuen -bertan zegoen gordeta goizeko nire **erosketa**-. Oskar Arana

Alde batean onak, berari erosten diotenak; bestean, gaiztoak, gehienak, **erosketa** beste nonbait egiten dutenak, hirigunean berreraikitako dendetan. Joseba Urteaga

Berak irabazitako diruz egindako lehen **erosketak** pozez bete zuen. Anton Garikano

Florak ezin zuen ama bakarrik utzi, eta neu arduratu nintzen Artaxonako hilobiaren **erosketaz**. Ramon Saizarbitoria

Goizean kantari jaiki eta **erosketa** enkargatzera joaten zen. Fernando Rey

Pia sarri joaten zen Gruarora, **erosketaren** bat egitera zela, ile apaintzailearengana zela. Josu Zabaleta

Kanpotiarrek zenbait **erosketa** egiten badute ere egoiten diren denbora labur hortan, nola ikusia ote da urte guzian tokiko eroslea? Herria

Lantzean behin, Adbuster fundazioak sona handiko kanpainak antolatu ditu **Erosketarik** gabeko Eguna edota Telebistarik gabeko Astea bezalakoak, besteak beste. Txema Ramirez de la Piscina

2 (pluralean)

Sara bere ahizpa Karmelerekin bizi zen, eta Karmeleren etxeko ardurak zituen -sukaldea, **erosketak** eta garbiketa-. Joan Mari Irigoien

Inguruko mahaikoek elkarri erakusten zizkioten **erosketak**. Iñaki Mendiguren

Lehenengo zalantza sortu zen emakume batek, **erosketak** poltsan sartuta zituela, ahapeka esan zuenean diruz gaizki samar zebilela eta ea larunbatean ordain zezakeen. Joseba Urteaga

Egun osoa elkarrekin egin dugu: elkarrekin bidaia, elkarrekin **erosketak**, elkarrekin otorduak. Patxi Zubizarreta

Premiazko **erosketak** eta gainerako prestaketak egiteko orduan. Anton Garikano

Constable andreak, **erosketek** zamaturik eta gorrituta, ezagutu egin ninduen zezen bat bezala Woolworthetik atera zenean. Koro Navarro

Gaur merkatalgune batean gelditu garenean, **erosketen** artean beste koaderno bat ikusi diodalako. Patxi Zubizarreta

Botilatxoa **erosketen** zakutoan sarturik, non zer bilatuko segitu du, harik eta soldadu batzuk hurbildu zaizkion arte. Anjel Lertxundi

1990eko hamarraldiko fusioen eta **erosketen** hazkunde izugarria (ia %30 urteko). Koro Navarro

Hutsik zegoen aulki batean bere **erosketak** utzita. Iñaki Mendiguren

Espaloitik agure bat zihoan, etxerantz seguruenik, **erosketekin** betetako paperezko zorroa, *brown bag,* bularraren kontra zeramala. Iñaki Zabaleta

Erosketekin eta biharamunerako hegazkin txartelarekin itzuli naiz hiritik. Joseba Sarrionandia

Estatuarentzako **erosketa** horiek direla eta, zekale-irina behar baduzu, edo gari-irina, edo alea, edo okela, ez ahaztu nitaz, mesedez. Jose Morales

Eskerrak Ghulame gurekin etorri eta **erosketez** arduratu den. Xabier Montoia

Ilunkeran, fabrikatik irtendakoan, justu izaten dugu astia **erosketa** batzuk egiteko, zerbait jateko; Rekexo ohartu zen **erosketen** gurditxoa ia puntaraino beterik zeukatela

coca-cola botilaz. Eskarne Mujika

Uste baino denbora gehiago behar izan dugu **erosketetan**. Oskar Arana

Hantxe **erosketako** boltsak husten hasi zen. Fernando Rey

Ama, berriz, etxekoandre eskolarik gabea, **erosketetako** numeroak egiten iaioa baina. Xabier Mendiguren Elizegi

Solasean hasi orduko, dendako neskamea, Augustine, **erosketetatik** itzuli zen. Karlos Zabala

Aita, ama eta hiruok, bakoitzak eskolako zorro bat eta **erosketetarako** poltsa bana zeramala. Josu Zabaleta

30 euroz gutiagoko **erosketentzat**. Herria

Pia sarri joaten zen Gruarora, **erosketaren** bat egitera zela, ile apaintzailearengana zela, permanentea egitera. Josu Zabaleta

3 (izenondo eta izenlagunekin)

-Oso **erosketa** ona egin duzu, Pavel Ivanovitx! Jose Morales

Telefonora lotzeko grabagailua izan zen bere **erosketarik** hoberena. Bego Montorio

Erosketa xehe frangoren pagatzeko baliatzen ahalko den karta. Herria

Opari paregabetzat zeukan hain **erosketa** ustekabekoa. Jose Morales

Ez zuen **erosketa** txarra egin, gero! Sonia Gonzalez

Auzoko emakumeek asteburuko **erosketa** hiriguneko supermerkatu handietan egiten zuten. Joseba Urteaga

Irakurleak dagoeneko ikusi du nola egin zituen Txitxikovek lehenbiziko **erosketak**. Jose Morales

Sei lagunendako sarrerak gehi barneko **erosketa** itzuriezinak. Aingeru Epaltza

Azken **erosketak** herenegun eginak nituen. Piarres Aintziart

Sekulako **erosketak** egiten zituela pentsatzea bazegoen, baina, egia esatera, oparietatik bizi zen. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goi-goikoak Salmansar erregearen begiko egin ninduen; haren erreinuko **erosketa**-buru izatera iritsi nintzen. Jose Antonio Mujika

Miepek hartu zuen, zapi batean bildu, **erosketa** poltsan sartu eta zakurren eta katuen klinika batera eraman zuen. Josu Zabaleta

Hirurogeita bi urteko gizon bat **erosketa**-orgari bultzaka dabil korridoreetan gora eta behera. Iban Zaldua

Hango eliza-kanpaiak eta hamar mila txakurrak, hango arlote bakarti eta etxe gabe underground-ak, beren **erosketa**-orgatxoei etorbideetan behera bultzatuz eta zakarretan botilen bila azterka aritzen direnak. Oskar Arana

Andre zarpailak **erosketa** karroan darama gizon are trapilagoa. Pako Aristi

Halaber, aurrezkia murrizten du, aurrezturiko zenbatekoen **erosketa** ahalmena txikiagotzen baitu. Iñaki Heras

Dendako **erosketa** liburuxkan azken eroslearen izena agertzen zen: Ed Gein-ek motorretan erabiltzen den izotzaren kontrako likidoa erosia zuen. Gotzon Garate

Gaur arratsaldean, berriz, amaren **erosketa** zerrenda garbian jarri nahi izan dut, irakurtzeko nahikoa letra zaila du-eta. Josu Zabaleta

Karmelo: orain ulertzen dut, zinez, zergatik etorri zen nire alboan New Yorkeraino, zergatik ibiltzen zen sarritan nire inguruan, zergatik egiten zitzaidan hain ezaguna **erosketa** zerrendetako haren letra... Patxi Zubizarreta

Garai batean, sektore-korruetan antolaturik, **erosketa** eta salmenta aginduak elkarri ahoz esaten zizkioten. Iñaki Heras

Txitxikovek ez zuen Khlobuievengan pentsatzen eginiko **erosketa** oldozpen guztiez jabetu zitzaiolako. Jose Morales

Prezioen goratzea gurpil zoroa osatuz gertatzen da: prezioek izandako hazkundea dela medio, soldatek ere, beren **erosketa** ahalmenari eusteko. Iñaki Heras

EE 480/0 **Erosketa** Ebazpidearen arabera, gutxienez ehuneko 28 kromo oxido eduki behar zuen guztira. Juan Garzia

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nik neure 28 urteak bete behar nituen unean, janari-**erosketak**, petrolioa, xaboia, pospoloak, eta abar, erosi beharretan ezinago trakets eta baldar, "leku berean batera denak egitea onena", pentsatu nuen. Txillardegi

Liburu-**erosketan** aholkua eskatu nionean, pozarren hartu zuen, ohoretzat ere bai beharbada. Xabier Mendiguren Elizegi

6 ***erosketak egin***

Jatekorik ez zakuan: **erosketak** egin ditut herriko saltegi bakarrean. Piarres Aintziart

Egunero joaten dira merkatu horietara etxeko **erosketak egitera**. Jose Morales

Estatuarentzako **erosketak egiten** zituelako kontu horrek berebiziko eragina izan zuen Nastasia Petrovnarengan. Jose Morales

Herriko saltegietan **erosketak** egiten dituztenek txartelak eskuratzen dituzte eta hauekin zozketa batean parte hartzen ahal dute. Herria

Neskatila goizeko lauretan jaikitzen zen, bere nagusiari **erosketak egiten** laguntzeko. Karlos Zabala

Emazteak bazekien sukaldean -sukaldari ona zen- eta **erosketak** egiten. Mirentxu Larrañaga

Asteburuetan **erosketak** elkarrekin egiten, zinemara edota diskotekara joaiten. Eneko Bidegain

Hark **egiten** zituen **erosketak**, hark garbitzen, hark otorduak prestatzen. Karlos Zabala

-Nahi baduk, **egingo** dizkiat **erosketak** lanean ari haizen artean. Eskarne Mujika

Asteburuetan **erosketak** elkarrekin **egiten**, zinemara edota diskotekara joaiten. Eneko Bidegain

Bepek eta Miepek **egin** zituzten **erosketak**, gure errazionamendu liburuxkez baliatuz. Josu Zabaleta

Orain, dena dela, sosa behar nuke **erosketak** eta abar **egiteko**. Txillardegi

· Biak salerostetan ari dira lanean; nahiz gainerat, Alain erresuma gehienetan ibiltzen den artetan, **erosketen** egiten. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten erosketa (5); **beren erosketa** (3); **beste erosketa** (3); **du erosketa** (3); **egindako erosketa** (5); **egindako erosketa eskaintza** (3); **erosketa ahalmena** (6); **erosketa batzuk** (10); **erosketa batzuk egitera** (6); **erosketa egin** (3); **erosketa egiten** (4); **erosketa eskaintza** (26); **erosketa eskaintza publikoa** (6); **erosketa eta** (8); **erosketa hori** (5); **erosketa ona** (3); **erosketa ona egin** (3); **erosketa politika** (3); **erosketa poltsa** (3); **erosketa poltsak** (5); **eta erosketa** (14); **eta erosketa eskaintza** (3); **gain erosketa** (4); **gain erosketa eskaintza** (3); **zuen erosketa** (5)

ama erosketak egitera (3); **batean erosketak** (3); **bere erosketak** (3); **dira erosketak** (3); **ditu erosketak** (4); **edo erosketak** (4); **egiten ditu erosketak** (3); **erosketak egin** (29); **erosketak egin behar** (4); **erosketak egin zituzten** (3); **erosketak eginez** (3); **erosketak egitea** (4); **erosketak egiteko** (24); **erosketak egiten** (52); **erosketak egiten ari** (15); **erosketak egitera** (53); **erosketak egitera atera** (3); **erosketak egitera joan** (5); **erosketak egitera joaten** (3); **erosketak egiterakoan** (4); **erosketak ere** (3); **erosketak eta** (12); **erosketak nagusitu** (3); **erosketaren bat** (4); **erosketen egiteko** (5); **erosketen egiten** (3); **eta erosketak** (14); **eta erosketak egin** (4); **eta erosketak egiten** (3)

---

erosketatxo *iz adkor* erosketa.

Ez duzu **erosketatxo** batzuk egitera joan gura, edo ileapaindegira? Josu Landa

---

eroskunde *iz* erosketa.

Baina Jainkoak barru-barrutik ezagutzen ditu, berauetan du bere atsegina eta berauen bizitzei esker Jainkoak berritzen du **eroskunde**-oparia. Joan Mari Lekuona

---

erosle **1** *iz* erosten duen pertsona.

Erosleen eta saltzaileen atomizazioa gertatuko da (hau da, **erosle** eta saltzaile asko baina txikiak, merkatuan eragiteko ahalmenik ez dutenak). Iñaki Heras

Ekoizle eta **erosle** askoz osaturiko merkatua. Iñaki Heras

Diruak, beste edozein ondasun edo zerbitzuk bezala, **erosle** edo eskatzaile batzuk ditu eta saltzaile edo eskaintzaile batzuk. Iñaki Heras

Ez dendarik, saltokirik edo enplegatu nahiz **eroslez** gainezkaturiko salmahairik. Bego Montorio

Hezkuntzan, esaterako, kostuak handiagoak direla, besteak beste liburuak prestatzea eta argitaratzea garestiagoa delako, **erosle** gutxi izanik. Pello Salaburu

-Bai; saltzeko prest nago -esan zuen Sobakevitxek, burua apur bat jasorik, eta ulerturik ezen **erosleak**, seguraski, etekinen bat aterako zuela hortik. Jose Morales

Erosleek bazekiten arras ongi kalitate oneko produktoa ukanen zutela, aspaldiko adiskide baten saltegian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Merkatariak [...] berehalaxe altxatu zuen salmahaiko ohola, eta, igarobidea horrela irekirik, saltoki barruan kokatu zen, salgaiak atzean eta **eroslea** aurrean. Jose Morales

Ez eskatu aholkurik emakumeari bere lehiakideaz, koldarrari gerraz, merkatariari negozioaz, **erosleari** salmentaz, bekaiztiari esker onaz, errukigabeari bihozberatasunaz. Elizen arteko biblia

Aitak aipatu didanez, gorriak ikusi dituzte adosatuentzako **erosleak** topatzeko, Banatzaileak ez du beste aukerarik: eskura dituen ordezko piezak apurtu, eta haien oinarrizko osagaiak atera, piezen **eroslea** haiek Cadillac-ean erabiltzeko moduan muntatzeko gai izango den itxaropenez. Iban Zaldua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Behialako garai batean nire erosteko ahalmena zuhurki administratzen zekien **erosle** irizpideduna nintzela amestu banuen ere, orain dena zen diferente. Jon Alonso

Antigoaleko gauzen saltzaileek urrea sari laster salduko dituztenak, **erosle** "postmodernoen" ametserako. Joxan Elosegi

Azaldu diozu zein zoragarria den ohiko bezero eta noizbehinkako **erosleen** arteko muga puskatuta ikustea. Lutxo Egia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fruitu-dendara sartu zenean, **erosle**-multzo artean kokatu zen, zehatzago, ni nengoen tokia baino apur bat aurrerago. Josetxo Azkona

Kaleetako **erosle**-andana eta gas-argien distira ikustean oroitu nintzen nire bidaiaren xedeaz. Irene Aldasoro

Merkatu hori oso merkatu konplexua eta garatua dela, bertan izaten diren saltzaile eta **erosle** kopuruarengatik. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orduan, agintarietako batek, olio-**erosle** izanagatik, gogora ekarri zuen bazela Palermotik gertu, muino baten atzean bizi zen kapitain bat, espainiarra jaiotzez, ezagutza zuenetik inork mendean hartu gabea. Felipe Juaristi

Kapitalen merkatu horri deitzen zaio burtsa, eta bertan izaten dira akzio **erosleak** eta saltzaileak. Iñaki Heras

Gure bezeroak -esaterako torloju **erosleak**- kontratuaren baldintza-orrietan jarri dizkigun zehaztapenak betetzea. Iñaki Heras

5 erredimitzailea.

Gure Aita txit santua, gure egile, **erosle**, kontsolatzaile eta salbatzailea. Askoren artean

Jesus **Eroslearen** Eliza izan aurretik oihal-denda izan zen, saihetsetako leihoak ez eta aurrekoak bakarrik erabili zituena. Anton Garikano

Kreatzailea eta **Eroslea** ezagutu, aitortu eta gurtu nahi izango bazenute, haiek beren burua bezainbat maitatuko zintuzkete. Askoren artean

Zazpigarrena, argitasuna edo denbora erosoak gozatu, adibidez udan hozkirria, eta neguan eguzkia edo beroa, arimak uste dueino edo pentsatzen dueino lagun diezaiokeela bere Egile edo **Erosleagan** gozatzen. Patxi Altuna

Jesu Kristo gure Jaunaren eta **Eroslearen** ordezko Goihenari. Piarres Xarriton

Zauri hau izan zen, hain zuzen, gure **Eroslearengan** giza erospenaren eta berriztapenaren sinboloa. Askoren artean

Ez da harritzekoa, bere bihozberatasunaz sorkari guztien anaia bihurtu zen hura, Kristoren maitasunak Kreatzailearen irudiaz markatuak eta **Eroslearen** odolaz berrerosiak izan direnen are anaiago egin izana. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arima eroslea (3); **beste erosle** (4); **du erosleak** (3); **edo erosle** (4); **erosle asko** (3); **erosle bakar** (3); **erosle bakoitzak** (3); **erosle bat** (9); **erosle bati** (3); **erosle eta** (9); **erosle gehiago** (3); **erosle gisa** (4); **erosle guziak** (3); **erosle guziak eskertzen** (3); **erosle nagusia** (4); **eroslea ez** (3); **erosleak eta** (3); **erosleak ez** (4); **erosleek eta** (3); **erosleen arteko** (3); **erosleren bat** (3); **eta erosle** (14); **eta eroslea** (4); **eta erosleak** (6); **eta eroslearen** (4); **eta erosleen** (6); **saltzaile eta erosle** (3); **zen erosle** (3)

---

eroslegai *iz* eroslea izan daitekeen pertsona.

"Zein da nahi duzun ametsa?", galdegiten zuen gizonak begiak **eroslegaiaren** begietan ipinirik, eta erantzuten zioten "lorategi bat dudala, laranjondoz josia", edota "urrea dudala, eskuka erortzen zaidana", edota "maite nauen emakumea nirekin dudala". Felipe Juaristi

---

eroslego *iz* erosleak, erosleen multzoa.

Aniztasuna ona da, zalantzarik gabe, baina lubaki inkomunikatuek sortutako eta produzitutako lanek ez garamatzate inora, ez bada, gure irakurlegoaren eta **eroslegoaren** nahasmenera eta galtzera. Berria - Kultura

---

erosmen *iz* erostea.

Batzuek kontsumitzaileei **erosmen** ahal handiagoa eman nahi diete. Berria - Euskal Herria

---

eroso 1 *izond* erraz, lasai, oztopo edo buruhausterik gabe egin edo erabil daitekeena.

Egongela zabal hartako besaulki **eroso** batean esertzera gonbidatu genuen. Aitor Arana

Horrelako ostatuetan, eguneko bi errublo ordaindurik, gela **erosoa** ematen diote bidaiariari. Jose Morales

Logela oso **erosoa** zen, kaobazko altzariz hornitua, eta hura zen etxeko gelen artetik erabiltzen zuten bakarra. Karlos Zabala

Barruan leku **eroso**, fresko eta zabala topatu dugu. Urtzi Urrutikoetxea

Hemen egongelako besaulki **erosoan** dastatuko ditut haren mandarinak. Jon Arretxe

Hankak zabal-zabal egin postura **eroso** bat bilatzeko, eta begiak ixten nituen. Anjel Lertxundi

Deika ari zaizkit, keinuka, inoiz lehenago izan ez naizen mundu horretatik, han gailen den epeltasun **eroso** eta inguratzailean murgil nadin. Mirentxu Larrañaga

Pertsonen artean gertutasun **eroso** bat sortzeko lagungarri onak izaten dira maiz askotan gustuko otorduak. Juan Luis Zabala

Buru-ahulei aitortzen zaien inmunitatearen babes **erosoan**, utzikeriarik nabarmenenaz jarduten zuen Bortolasso bere lorezain lanean. Juan Garzia

Bizimodu **erosoaren** ezaugarriak ziren, halaber, hatzetan zeramatzan eraztunak eta idunekoaren perlak. Migel Angel Mintegi

Zenbait ingurunek, bizi-baldintza erraz eta **erosoak** dituztelako, zibilizazioen jatorriaren azalpenaren giltza dutelako ikuspegia ere aztertu eta baztertu egiten da. Iñaki Mendiguren

Bizitza basati eta landatar hura utziz, zibilizazio **eroso** batera iritsi zen. Santiago Iruretagoiena

Bizimodu hotza da, bai, baina **erosoa** -diote ongizate **erosoak** mozkortutako askotxok-, baina sano dagoenak badaki bizimodu hotz eta **erosoaren** paradigma beteginena hilerrikoa baizik ez dela. Iñaki Segurola

Gehienetan, itsas aldean ibiltzen nintzen, Pirinioetako pasabideak **eroso** samarrak baitziren kostatik hurbil. Anjel Lertxundi

Ongizate Estatua deitu izan zaio biztanleen egoera ekonomiko eta sozial **erosoa** zaintzea helburu duen gizarte politiken multzoari. Iñaki Heras

Egoera ez zen batere **erosoa**. Migel Angel Mintegi

Zeinen **erosoa** den zuen gisako arau zorrotzeko jendeekin harremanetan hastea! Jon Muñoz

Biek kiroletako oinetako **erosoak** zeramatzaten. Aitor Arana

Gutariko gehienok pasadizoko geltoki bat genuen telebista, unibertsitaterako edo argitaletxe baterako edo kultur politikaren karguren baterako, edo lustrea (eta kontu korronte **erosoa**) emango zigun best-seller baten bidean. Anjel Lertxundi

Beraz, "kamera-mugimendua" esatea esapide **eroso** bat da, batez ere, eta zehaztasun gutxiegikoa hiztegi teoriko batean egoteko. Josu Zabaleta

-Arreba -esan zuen Mikel Strogoffek-, zalgurdi **erosoagoa** nahi ninan hiretzat, baina ez dinat besterik aurkitu. Karlos Zabala

Ondoko gela **erosoagoa** da; segi barrura. Xabier Paya

Ezin eskain bide **erosoagorik** eta halaber erabiliagorik. Jon Muñoz

Aurrerantzean, **eroso** baino **erosoago** bizi izan zen ikazkina... harik eta espero baino lehen, jauregiko lorategietan paseatzen ari zela, Herio agertu zitzaion arte. Martin Anso

Berez ez: ez onena, ez **erosoena**, ez gozoena, ez samurrena, ez neureena, ez politena, ez legeak (barrenak, kontzientziak, ideiak...) agintzen duena, baina bai agian, inoiz, ederrena edo nahiena. Iñaki Segurola

Izan zitekeen amodio-istoriorik lasaien eta **erosoena** zen. Mirentxu Larrañaga

Erosoen zaigun arropa jantzi ohi dugu etxean, baina ez litzaiguke burutik pasatu ere egingo arropa horrekin kalera irtetea. Joxerra Garzia

· Praka zabal- **erosoak**, artilezko jertse gorria eta zetazko zapia lepo inguruan. Fernando Morillo

Hantxe zegoen Carmiña, kolore ilunez jantzita, eszenatoki ez oso garai baten gaineko aulki **eroso**-antzeko batean eserita. Iban Zaldua

2 *adlag* erosotasunez; egoki.

Selifani estalkia jaisteko agindu [...], eta **eroso** eseri zen, husarren koronel erretiratu batek edo Vishnepokromovek berak egingo luketen bezalaxe. Jose Morales

Ez zaitut **eroso** ikusten. Xabier Paya

Andonirekin oso ondo nago, **eroso** sentitzen naiz. Luis Elberdin

Egoeraren latzagatik ere, **eroso** sentitzen nintzen whiskyak gure artera ekarritako giro bare, kasik adiskidetsuan. Aingeru Epaltza

Leku hits eta itogarrietan sentitzen zen **eroso**, bere literatura elikatzen zuen bizitza ibaiertzetik bezala ikus zezakeelako. Joxean Agirre

Eta hiztuna zen, izugarri hiztuna: lehenengo unetik **eroso** sentiarazi gintuen. Iban Zaldua

Besaulki birakarian **eroso** ezarririk. Migel Angel Mintegi

Bulego dotorean hirurak **eroso** jarririk, sarrera laburra egin zuen Maizak, eta gero Teresari eman zion hitza. Migel Angel Mintegi

Eroso etzanda joaten zen bere gizonek gidatu eta tiratutako gurdi zarpail batean. Julen Gabiria

Gauzak **eroso** egitea gustatzen zaiola ikusten da. Juan Martin Elexpuru

Denda **eroso** zihoan, atsegintsu, neke handiegirik gabe, Lisak nahi bezala. Karlos Zabala

Nahiko ongi bizi naiz hemen, **eroso** eta lasai. Migel Angel Mintegi

-Eskerrik asko -erantzun zion Maimiek-, **eroso** eta epel egon naiz. Julen Gabiria

Euskalki desberdinetako hiztunak bata bestearekin erraz eta **eroso** ulertzeko asmatu zen. Koldo Zuazo

Herri edo eskualde jakin batean erabiltzeko ziren kristau ikasbideak, eta bertako hizkerara itzuli ohi ziren, herri xeheak erraz eta **eroso** irakur zitzan. Koldo Zuazo

Ez dut ahalegin handiegirik egin behar aro bi horiek berreskuratzeko eta oso **eroso** sentitzen naiz, gainera, garai haietaz hitz egiten. Ana Urkiza

Idazteko premiazkoa zuela ezinegona bere onena emango bazuen, eta erabat **eroso** bazegoen ezin zuela ondo idatzi. Harkaitz Cano

Badaki nora joan nahi duen eta **eroso** samar doa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Pozik zeunden, zure buruarekin **eroso**, erruduntasunaren zantzurik ez bihotzean, zertarako. Eider Rodriguez

Ahalik eta **erosoen** egon zaitezen nahi dut, Aurora. Oskar Arana

Gu arrunt zabal- **eroso** bizi ginen elkarren arrimuan. Juan Garzia

Ezin hobeto zetorkidan premia hura nire ordu kezkez beteak **erosoago** eramateko. Anjel Lertxundi

Ez dago deus **erosoagorik**, zuri-beltzeko pentsamoldea baino. Joxerra Garzia

Tea edaten zuten denda-oste **eroso** antolatuan. Jon Muñoz

3 (errepikaturik)

Eroso-eroso kokatuta nago bulego nagusian, errezel astunen arteko zirrikitutik leihotik kanpora begira. Josu Zabaleta

Euliak, aurreko egunean hormetan eta sabaian lo gozoan egonak baitziren, denak batera oldartzen zitzaizkion orain: bat ezpainean pausatu zitzaion, beste bat belarrian, eta hirugarren batek begian **eroso-eroso** esertzeko ahaleginak egiten zituen. Jose Morales

Jarlekuen lehen ilaratik ikusiko zuen gerraren festa, eta, are garrantzitsuagoa zena, garaileen eserlekuetan **eroso-eroso** jarrita. Alberto Ladron Arana

Une berean, txoria txapelera jaitsi zen hegaka, eta arrautzen gainean jarri zen berriro ere, **eroso-eroso**. Julen Gabiria

4 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Lurdesek lanaren **erosoa** azpimarratzen zidan. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eroso (9); **batere eroso** (25); **batere eroso sentitzen** (6); **bertan eroso** (3); **besaulkian eroso** (4); **bezain eroso** (10); **bezain eroso sentitu** (3); **da eroso** (9); **da eroso sentitzen** (4); **dago eroso** (3); **erabat eroso** (3); **erdian eroso** (3); **ere eroso** (10); **eroso al** (3); **eroso antzean** (3); **eroso ari** (5); **eroso aritu** (24); **eroso aritu zen** (6); **eroso aritu ziren** (8); **eroso aritzen** (4); **eroso aritzen da** (3); **eroso asko** (8); **eroso bat** (21); **eroso bat aurkitu** (4); **eroso batean** (6); **eroso batekin** (3); **eroso batera** (3); **eroso bizi** (10); **eroso bizitzeko** (6); **eroso dago** (13); **eroso dagoela** (3); **eroso daude** (4); **eroso egin** (10); **eroso egon** (11); **eroso egongo** (3); **eroso egoteko** (9); **eroso egoten** (5); **eroso eroso** (7); **eroso eseri** (4); **eroso eserita** (8); **eroso eta** (38); **eroso eutsi** (4); **eroso eutsi zion** (4); **eroso ez** (6); **eroso gertatzen** (3); **eroso hartu** (3); **eroso ibili** (4); **eroso ikusi** (3); **eroso ikusten** (5); **eroso irabazi** (15); **eroso irabazi zuen** (8); **eroso irabazi zuten** (3); **eroso jardun** (6); **eroso jarri** (15); **eroso jarri eta** (3); **eroso jarri zen** (4); **eroso jarrita** (3); **eroso jokatu** (15); **eroso jokatu zuen** (4); **eroso jokatzeko** (7); **eroso jokatzeko aukera** (3); **eroso jokatzen** (10); **eroso kokatu** (3); **eroso mugitu** (6); **eroso mugitu zen** (3); **eroso mugitzen** (5); **eroso nago** (3); **eroso nagusitu** (8); **eroso nagusitu ziren** (3); **eroso samar** (5); **eroso sartzen** (3); **eroso senti** (4); **eroso sentiarazten** (4); **eroso sentitu** (19); **eroso sentitu nintzen** (3); **eroso sentituko** (4); **eroso sentitzea** (5); **eroso sentitzeko** (7); **eroso sentitzen** (58); **eroso sentitzen da** (3); **eroso sentitzen ez** (3); **eroso sentitzen naiz** (6); **eroso sentitzen nintzen** (3); **eroso ulertzeko** (4); **erraz eta eroso** (9); **eta eroso** (76); **eta eroso aritu** (3); **eta eroso irabazi** (3); **eta eroso jarri** (4); **eta eroso sentitzen** (4); **eta eroso ulertzeko** (4); **etxean bezain eroso** (3); **etxean eroso** (3); **ez da eroso** (5); **ez dago eroso** (3); **ez naiz eroso** (3); **ez nengoen eroso** (5); **ez nintzen eroso** (5); **ez zaie eroso** (3); **ez zegoen eroso** (3); **ez zen eroso** (4); **ez zuen eroso** (5); **gustura eta eroso** (3); **hain eroso** (10); **horretan eroso** (6); **jendea eroso** (3); **kantxan eroso** (4); **lasai eta eroso** (9); **leku eroso** (3); **mamesen eroso** (3); **nahiko eroso** (23); **nahiko eroso irabazi** (6); **naiz eroso** (3); **nengoen eroso** (5); **nintzen eroso** (5); **nintzen eroso sentitzen** (5); **oso eroso** (31); **oso eroso sentitzen** (6); **pozik eta eroso** (3); **san mamesen eroso** (3); **zaie eroso** (3); **zaitez eroso** (3); **zegoen eroso** (5); **zen batere eroso** (4); **zen eroso** (8); **zuen eroso** (7); **zuen eroso jokatu** (3)

alde erosoa (4); **batere erosoa** (12); **batere erosoa ez** (3); **bizimodu erosoa** (3); **bizitza erosoa** (4); **da batere erosoa** (8); **da erosoa** (13); **da oso erosoa** (3); **erosoa da** (21); **erosoa dela** (3); **erosoa ere** (4); **erosoa eta** (9); **erosoa ez** (4); **erosoa izan** (14); **erosoa izango** (11); **erosoa izaten** (5); **erosoa lortu** (7); **erosoa lortu zuen** (4); **erosoa lortu zuten** (3); **erosoa zen** (5); **eta erosoa** (8); **ez da erosoa** (11); **ez zen erosoa** (4); **garaipen erosoa** (9); **garaipen erosoa lortu** (5); **kontrario erosoa** (4); **leku erosoa** (6); **oso erosoa** (26); **oso erosoa da** (8); **partida erosoa** (6); **partida erosoa izan** (4); **politika erosoa** (3); **zen erosoa** (4)

askoz erosoago (9); **askoz erosoagoa** (5); **askoz erosoagoa da** (3); **baino erosoago** (14); **baino erosoagoa** (5); **ere erosoagoa** (3); **erosoago aritzen** (5); **erosoago bat** (6); **erosoago dago** (4); **erosoago egiten** (3); **erosoago egon** (6); **erosoago egongo** (6); **erosoago egongo zara** (3); **erosoago egoteko** (3); **erosoago eta** (5); **erosoago jokatu** (3); **erosoago jokatzen** (4); **erosoago sentitu** (4); **erosoago sentituko** (4); **erosoago sentitzen** (18); **erosoago sentitzen da** (3); **erosoago sentitzen naiz** (5); **erosoagoa baita** (3); **erosoagoa da** (14); **erosoagoa izan** (7); **erosoagoa izango** (4); **erosoagoa zen** (4); **erosoagoak izan** (3); **erosoagoak izango** (3); **eta erosoago** (18); **eta erosoago egon** (3); **eta erosoagoa** (7); **eta erosoagoak** (4); **gero eta erosoago** (3); **geroz eta erosoago** (4); **zara erosoago** (4)

ahalik eta erosoen (7); **bizimodurik erosoena** (3); **erosoak eta** (6); **eta erosoak** (5); **eta erosoan** (3); **eta erosoen** (8); **eta erosoena** (3); **modu erosoan** (4); **oso erosoak** (3); **pedalkada erosoarekin** (3)

---

erosokeria *iz* erosotasuna, gaitzesgarritzat hartua.

Asmo horren ahazteak arrazoi asko izango zituen: batetik, noski, nagikeria, **erosokeria**, neurekoikeria (edo ezaugarri horiexek atzizkiaren kutsu ezkorrik gabe: nagitasuna,

erosotasuna, neurekoitasuna); bestetik, [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Arduragabekeria, **erosokeria**, nagikeria eta ankerkeria ekintza nabarmena da. Berria - Euskal Herria

---

erosoki *adlag* eroso.

Begirada tristeko zaldi argalaren gainean, orekan emana, bi kartolak osatzen zuten kakoleta, **erosoki** bikote bat esertzeko atonduak. Txillardegi

Damurik ez nuela Egunkaria erosi, haren gibelean **erosoki** kukutzen ahalko nintzelakoan. Itxaro Borda

Honela ulertzen ez dituen eta ez berak ezta munduan beste inork ere inoiz adituko ez dituen gauzei buruz **erosoki** arrazoikerietan aritzeko. Ibon Uribarri

---

erosotasun **1** *iz* erosoa denaren nolakotasuna; eroso sentiarazten duen gauza edo zertzelada.

Arkitektoa formalista zen eta gogoko zuen simetria; jabeak, ordea, **erosotasuna** nahiago zuen. Jose Morales

Jendeak dieta bereziak egiten ditu gizentasunari aurre egiteko, autoan mugitzen dira eta **erosotasuna** dute helburu nagusi. Berria - Gaiak

Etxebizitzaren erabilpenagatik ezarritako zerga kalkulatzeko hainbat elementu hartzen dira kontuan: etxearen metro koadro kopurua, eraikinaren kalitatea, **erosotasuna** eta abar. Berria - Euskal Herria

Gorkak **erosotasuna** aukeratu du: onartu du bere porrota, ez du mundua aldatuko, kito. Alberto Barandiaren

Aurrera joateko eta hainbat arazori konponbidea aurkitzeko dauden oztopo nagusiak, unibertsitarioon **erosotasuna**, inertziak, aurreiritziak, eta beldurrak dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Segurtasuna ezezik, **erosotasuna** eta luxua ere jarri nahi ditut zure eskura. Lopez de Arana

Ikus daiteke estatu zabal, ahul eta biztanle gutxikoetan, beste gorabehera batzuk ez badira tarteko, nabarmenkeria-gogoa nagusitzen zaiola **erosotasunari**. Juan Martin Elexpuru

Pax Romana delakoa, giza existentziarako eman zuen **erosotasunari** dagokionez, oso urruti geratu zen gu orain begiztatzen ari garen etorkizunetik. Iñaki Mendiguren

Leihoetatik zehar etxe-barne burgesen **erosotasuna** genekusan. Ramon Saizarbitoria

Inguruan, txaletxoek eta ostatuek, berdearen eta loreen artean, baretasunaren eta **erosotasunaren** irudi beteak ziruditen. Josu Zabaleta

Miren Agur Meaberen kezka estetikoa, gardentasunaren, dotoreziaren, benetakotasunaren eta **erosotasunaren** arteko oreka aurkitzea eta lantzea da. Ana Urkiza

Erosotasunaren izenean bustidurak ez idaztea litzateke bidea. Koldo Zuazo

Baliagarritasunean, **erosotasunean** edo eraginkortasunean oinarritzen den filosofia batek arbitrariotasunerantz zabaltzen duen ate horretarik gizakiaren eromen guztiak sartzen dira. Josu Zabaleta

Kunderaren kasuan, garai batetik aurrerako liburu ia guztiak dira lehengoen aldean eskasagoak, eta ez dakit zein den arrazoia, ugari izan bailitezke azalpenak: etorria agortzea, esan beharrekoa dagoeneko esanda edukitzea, zuzenean frantsesez idazten hastea, **erosotasuna** eta arrakasta lortuta motibaziorik gabe geratzea, [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Gauza bakarra desiratzen du, ni ezkontzea, neure onerako eta, agian, bere **erosotasunerako**. Koro Navarro

Maupassantek ez zituen inoiz bereizi "conte" eta "nouvelle"; istorio labur guztiei "nouvelle" deitu zien beti, hemen "ipuin" deituko diegu, **erosotasunagatik**. Josu Zabaleta

Bidaiak iraun bitartean denbora nahikoa eta gehiago izan nuen gizon hark, **erosotasunagatik** edo beste tokirik ez zegoelako, belaun gainean zeraman maleta txikiari erreparatzeko. Bernardo Atxaga

Ez ote da soil-soilik hizkuntza batek ematen dion erraztasunaz edo **erosotasunaz** baliatzen eliza, bere interes propioagatik? Piarres Xarriton

Hala, kontzentrazio faltaren erruz edo **erosotasunez** edo konfiantza gehiegizkoan murgiltzeak sor ditzakeen arrisku beti ere larriak saihesten ditu. Karlos Linazasoro

Lanik edo zereginik gabeko denbora, atsedenezko, **erosotasunezko** egoera, bereziki lanetik kanpo gertatzen dena eta nahi den eran bete daitekeena. Berria - Gaiak

Altzariak ugariak ziren, **erosotasunik** gabeak, zaharrak eta hondatuak. Koro Navarro

2 (pluralean)

Hotelaren **erosotasunak**, behintzat, ondo aprobetxatzen saiatu naiz; adibidez, halleko besaulki hauena. Jon Arretxe

Zurezko bungalow bat aukeratuko duzu, Gorbeia edo Iratiko mendi aterpe zaharren modukoa, baina *holiday inn* modernoenen **erosotasunekin**. Joseba Sarrionandia

Berriro itsasoratzekotan nahiago nikek transatlantiko baten itsasoratzea, bere igerileku, kasino eta gainerako **erosotasunekin**. Migel Angel Mintegi

Gauza seguruagoa da erlijioari faboreen bidez, bizitzako **erosotasunen** bidez, aberastasunaren itxaropenaren bidez eraso egitea. Iñaki Iñurrieta

Bizitzako **erosotasun** guztiak dituzte, eta premia gutxi. Iñaki Iñurrieta

Horregatik diot, iritzia ez ezik, sinesmen indartsua ere badela (bere zuzentasunaren alde bizitzaren **erosotasun** asko jarriko nituzke arriskuan) beste munduetako biztanleak daudela baieztatzea. Ibon Uribarri

Niretzat hainbeste **erosotasun** zuen etxe hartan. Juan Martin Elexpuru

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Lurrun-tranbia hiritik Gazzolako geltokiraino iritsiko zen eta **erosotasun** handia izango zen hura. Koldo Biguri

David Secok sekulako erakustaldia egin zuen Ermuako proban, eta **erosotasun** handiarekin nagusitu zen. Berria - Kirola

70 urte dauzka Mariak, eta baserritik alde egin beharko dutela dio, zahartu egin direla, kalean **erosotasun** handiagoak daudela. Pako Aristi

Azken orduko mizkeria eta **erosotasun** berri guztietan dirua parrastaka xahutzearen antzea besterik ez dut ikasi, diruarekin ezin hautsizko lotura duten ikasgaiak baino ez ditut menderatu. Jose Morales

Bankuko akzioez eta **erosotasun** kapitalista guztiez inguraturik bizitzea. Pello Salaburu

Publikoak, edozein gauza ere, arrazoirik gabe sinesten ikasten baitu, eta gero taxuzko arrazoi guziak alferrik izaten, bere **erosotasun** txoro kutsakor horretatik ateratzeko. Patziku Perurena

Luxu harrigarria, klimatizazioa eta erabateko **erosotasuna**. Jon Muñoz

Bistakoa zen bere egitasmoak hausnartzeko ez zuela behar besaulki bigunekiko langelarik edo bestelako **erosotasun** lasaigarririk. Jose Morales

4 (hitz elkartuetan)

Baina une batez atxikiz gero, **erosotasun** eta segurtasun sentimendu horren tokia egonezin sakonak hartzen zuen. Monika Etxebarria

Alfonbrak, errezelek, paisaiez apainduriko pitxar portzelanazkoek haien lanaren etekina islatzen zuten, bai eta haien **erosotasun** nahia ere. Karlos Zabala

Gero, arratsaldean, jakin nuen Éva gaxtea ere ohartua zela aitaren **erosotasun** ezaz. Ander Irizar

Errusiatik Siberiara doazenei axola gutxi die **erosotasun** falta horrek, barne aldetik etorrita aldean baitakarte behar duten guztia. Karlos Zabala

Inertzia kontua da, hein handi batean; **erosotasun** edo nagitasun kontua. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina erosotasun (3); **erosotasun eta** (6); **erosotasun guztiak** (6); **erosotasuna eta** (6); **erosotasunaren mesedetan** (3); **eta erosotasun** (17); **eta erosotasuna** (8); **eta erosotasunaren** (4); **eta erosotasunean** (3)

---

erosotasunzale *izond* erosotasunaren zalea dena.

Bortitz eta grinazko ororen etsaia zen, nagia, lasaia, **erosotasunzalea**. Josu Zabaleta

---

erosotu, eroso(tu), erosotzen da/du *ad* eroso egon, eroso egokitu.

Begiraiok nola mugitzen den, **erosotzeko** patxadarik aurkituko ez balu edo. Juan Garzia

Bero deritzan tasun nagi horretara **erosotu** zen, ezin atzemateko heinean berotuz lasterraldiak harroturiko airea eta lasterkariaren odola. Juan Garzia

Laburtuz, Epikurok hauxe esan nahi zizun: zeure mundualdia **erosotu** eta gozatu nahi baduzu, ez itzazula hazi zeure ondasun ustezkoak, zeure grina antzuak murriztu baizik. Patziku Perurena

---

erosotze *iz* eroso egotea, eroso egokitzea.

Ezin nuen sinetsi hain aspaldi ez zela estudiante guztiz ganorabakoak izandako haiek, urte gutxiren buruan halako **erosotze** eta degeneratze mailara hel zitezkeenik. Jon Arretxe

---

erospen **1** *iz* erosketa, eskuarki gatibu edo kideko batena.

-Kurutzaldeko jabekin, haur zaindegiarendako bazen **erospen** bat aipatua, bainan ez bururatua, hor ere hautetsiak galde egin dute auzapezari behar dena egitea. Herria

Eta zu gabe, penaz beterik nago, zu baitzara Jesus, gure **erospena**, gure maitasun eta irrika, ogi indar-emailea eta aingeruen bihotzak eta santu guztien bihotzak pozten dituen ardoa! Askoren artean

Behin, anaiak bidali nahi izan zituen munduan zehar ontzi ederrak eramanez, inon gure **erospenaren** ordaina leku desegokian jarria aurkitzen bazuten, tokirik ohorezkoenean jar zezaten. Askoren artean

Oso nabarmen azaltzen zen haren gorputzean saihetseko zauria ere, ez giza eskuz egina, Salbatzailearen saihetseko zauriaren antzekoa baizik: zauri hau izan zen, hain zuzen, gure Eroslearengan giza **erospenaren** eta berriztapenaren sinboloa. Askoren artean

Eta **erospenaren** prezioa ituntzean gatibu bati sinetsiko liokeenak ez luke arrazoiz jokatuko. Esteban Antxustegi

Eguberrirekin batera zernahi **erospenen** eta neurrigabeko kontsumo baten garaian. Herria

Ondotik, bakotxak izan du denbora bere **erospenen** egiteko, guziak beren egunaz kontent dira etxerat itzuli. Herria

La Futaie ongi etorri etxeak bilana pausatu zuelarik Herriko Etxeak deliberatu zuen ez erostea, lehentasun eskubidez egiten ahalko zuen bezala, **erospenarentzat** HLM sozietateak ez zuela lagunduko jakitearekin. Herria

Erosleen batasuneko ordezkari bat mintzatuko da **erospen** hautuen kanbiamenduez. Herria

Libra ezazu hilobira jaistetik, aurkitu baitut honentzako **erospen**-saria. Elizen arteko biblia

Konpainia hortako 30 aireko berriren **erospen** xedea erakutsi dutela. Herria

2 ***sal-erospen*** ik **salerospen**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erospen saria** (3); **sal erospen** (4); **sal erospenak** (4); **sal erospenen** (5); **sal erospenetan** (3)

---

erospide *iz* erosteko bidea.

Ongile [...]: esker txarra handizka erosten duena, hala ere, prezioan eragin handirik gabe, oraindik guztien **erospidean** baitago. Xabier Olarra

---

erosprezio *iz* erosteko prezioa.

Igandeko bazkaria bost eurotan ezartzen dugu, hazkurrien **erosprezioa** hein horretan estimatu baitugu. Herria

---

erosta **1** *iz* auhena, adia.

Zabaldu egin zuen nire aurrean eta bi aldeetatik zegoen idatzia: bertan **erostak**, intziriak eta aieneak zeuden idatzita. Elizen arteko biblia

Alferrikakoak izan ziren haren kexuak, **erostak** eta askatzeko erreguak. Aitor Arana

Harrez gero, akabo **erostak**, akabo kexak, akabo erdi negarrak. Edorta Jimenez

Egizue **erosta**, apaizok, doluz jantzita. Elizen arteko biblia

Erosta kantatuko dizute: "Nola dagoen hondatua, itsasoetako erregina, hiri ospetsua! Elizen arteko biblia

Haizearen zurrunbiloak etxe inguruetan barreiatzen duen **erosta** entzutean, "hor dabil Mateo Txistu, lurra lur den artio, erbiaren atzetik", esaten zuten gure haur garaiko zaharrek. Pako Aristi

Utz iezadazu orain, aita santua, zureak direla diotenengatik nire **erosta** zerurantz altxatzen. Askoren artean

Haizea zebilen, tronpeten kanta eta gezien **erostarekin** batera. Agustin Otsoa

-Nahiz eta **erostaz** bizi bat, ez du nahi hiltzerik gehienbat, iraun nahi du ahal den bezainbat. Berria - Kirola

-Hobeto egongo naiz gelan sartzen naizenean -gizonaren **erosta**. Aitor Arana

Bibliako **Erostak** datozkit gogora, batek daki zergatik. Karlos Linazasoro

Foru-galtzearen nahigabe eta **erostak** ditu bihotzetiko gai sentituenak. Berria - Kultura

Erosta Jerusalemgatik. Elizen arteko biblia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erosta-kantua dator Siondik: "Ai ene, galduak gara! Hau lotsa gurea! Geure lurraldea utzi egin behar, geure etxetik botatzen gaituzte!". Habakuk profetaren otoitza. **Erosta**-doinuan. Elizen arteko biblia

Zer egin horrelako pertsona ergel eta **erosta**-jolea edukiz gero? Josu Zabaleta

Anaia bikiak berak ekarri zituen emakume **erosta** jotzaileak, Markoren gorputzak bizian merezi izan ez zituen malkoek busti zezaten hiletetan. Felipe Juaristi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ama Euskarari bere negar-**erostak** zuzentzea Otxandioko santuginak asmatu bazuen, ama-semeak elkarrizketan jartzea Hernaniko harginari bururatu zitzaion, eta honi hartu zion baliabidea Itsasondoko fraidegaiak."Un peuple qui s'en va" deitu zigun norbaitek euskaldunoi XIX. mendean, eta askok errepikatutako leloa izan da geroztik, negar-**erostaz** batzuetan Xabier Mendiguren Elizegi

4 ***erosta egin***

Frodok **erosta egin** zuen, eta gero ahalegin handiz jaiki zen; balantzaka, berehala erori zen belauniko. Agustin Otsoa

Horrela **egiten** zuen, bada, **erosta** eta negar gure protagonistak, baina bitartean haren buruak ez zuen atsedenik hartzen. Jose Morales

Horregatik, negar eta **erosta egingo** dut, oinutsik eta biluzik joango naiz; basa txakurrak bezala uluka ariko naiz, ostrukak bezala intzirika. Elizen arteko biblia

---

erostaka *adlag* erosta egiten.

Erostaka, hotzez dardarka, artzanorak urez betetako erreten batean topatu zuen bere burua. Joanes Urkixo

-Jainko Jauna! -ari zen berriro **erostaka** Morse andrea, eta begiak besoekin estaltzen ahalegindu zen. Mirentxu Larrañaga

Gauza arrunta bihurtu da **erostaka** jardutea, esanez liburu irudidunek, telebistak, egunero milaka irudi artistiko errepikatuz, egunetik egunera originalak ez baina haien errepikak ikustera ohitzen gaituztelarik, sekulako kaltea egin digutela. Josu Zabaleta

Ezin dut hori agerira ateratzen utzi, zeren pentsa ezazu denok **erostaka** hasiko bagina edo bekozko ilunak jarriko bagenitu. Josu Zabaleta

Euren euskalkiarenganako begirunerik ez dutela-eta jarduten dute etengabe **erostaka**. Koldo Zuazo

Constantis **erostaka**. Edorta Jimenez

---

erostarazi, erostaraz, erostarazten du *ad* erostera behartu.

Publizitateak laguntzen gaitu gauza berriak **erostarazteko**: "patinette", "DVD" eta abar. Herria

---

erostari 1 *iz* erosta egiten duen pertsona. ik **adiagile**; **adiakari**; **auhendari**; **hiletari**.

Nahigabean edo, **erostari** edo kexatien taldea ere osatuz joan baitzen. Edorta Jimenez

Mahaia hautatu behar dut eta, **erostarien** klubekora noa. Edorta Jimenez

Turistarena egitea baino askoz okerragoa, ostera **erostarien** multzoan sartzea izan zen. Edorta Jimenez

Nekazariak deituko dituzte dolurako, **erostariak** hileta-negarrerako. Elizen arteko biblia

2 (adizlagun gisa)

-Jauna!, Jauna! -zioen **erostari**, eta masailetan behera malkoak zerizkion, bere buruagatik eta bizitzagatik. Mirentxu Larrañaga

---

eroste *iz* ordainketaren bidez zerbait eskuratzea.

Gure **eroste**-ahalmena areagotuko da etorkizun hurbilean ere. Edorta Agirre

Lur **erosteak** gertatzen badira ere. Herria

Barneak berak, gela berritze eta tresna **eroste**, hiru miliun euroz goiti gosta dira. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arima hilen eroste (3); **eroste agiri** (5); **eroste agiria** (15); **eroste agiriak** (14); **eroste agiriaren** (4); **eroste agiriaren gastuak** (4); **eroste agirien** (3); **erostearen alde** (3); **erosteari ekin** (6)

---

erostear *adlag* erosteko zorian.

Hilobia oinez inguratu eta ikuskatu dut gero, ez hilobi bat begiratzen den eran, baizik eta oso moduz **erostear** naizen bigarren eskuko Volkswagen zuria balitz bezala. Harkaitz Cano

---

erostearren *adlag* erosteko.

Badirudi mota honetako jakientzat merkatua dagoela, bezeroak prest baitaude elikagai osasuntsuagoak **erostearren** diru gehiago ordaintzeko. Berria - Gaiak

Etxerako bidean zetorrela, sartu-irten bat egin zuen kaleaz bestaldean zegoen supermerkatuan, afaria **erostearren**. Joxemari Iturralde

Datorren asterako ipini dut hitzordua, egun batzuetarako bakea **erostearren**. Agurtzane Juanena

Kristo bedeinkatuak, gure salbatzaileak, mugagabeko prezioa ordaindu duela gu **erostearren**. Askoren artean

---

erostetxe 1 *iz* denda.

Iaz, urrian, **erostetxe** bateko ilaran zain nengoela, kutxazain lanetan nire ikasle izandako neska bat ikusi nuen. Joseba Urteaga

Tati **erostetxeetako** poltsa arrosak ikusten ziren han-hemenka. Joseba Urteaga

Magenta bulebarrean irten nintzen, Billy **erostetxean** anorakak zituzten kanpoan zintzilik. Joseba Urteaga

2 (izenondoekin)

Erostetxe handi bateko behe-solairuko apalategi bat erakusten ari den dietista bat ematen zuen. Xabier Olarra

Kasik goiz erdia zeramaten Oxford Street-eko Bloomingdales **erostetxe** handian eta opariarekin bueltaka jarraitzen zuten. Joxemari Iturralde

Nire parean, Newberry **erostetxe** handien gainean, neonezko errotulu izugarri handi bat piztu-itzalian zen. Fernando Rey

Hiriguneko **erostetxe** aseptikoetatik eta nola zoazen jantzita begiratzen duten saltzaileen begiradatik iheska zetozen bezeroekin kontentatzen ziren. Joseba Urteaga

---

erostezin *izond* ezin erosizkoa.

Bertute hauek guztiona den egia eta jakituria berean bizi dira modu **erosezinean**. Imanol Unzurrunzaga

Atsegin handiz igurtzi zituen eskuak, hala nola igurtzitzen baititu zemstvoko bake-epaile **erosezinak** auzitegirantz abiatu aurretik ahamen bat jateko asmoz mahaira hurbiltzen denean. Jose Morales

Merkataritzaren alderditik begiratuta ere pozik senti zitekeen aita, dohain sarritan **erosezinak** semearentzat lortu izanaz. Irene Aldasoro

---

erostun *(orobat **erosdun**) iz* erosten duen pertsona.

Inbertsiogileen erresuman, saldunek **erostunak** garaitu zituzten: Iberiak %3,35 galdu zuen, Arcelorrek ere %2na pasa, [...]. Berria - Ekonomia

Gainera, **erostuna** Degrela kapitaina bera zen. Bernardo Atxaga

Erosdunak nahi du jakin gaur egun nondik datorren erosten duen janaria. Herria

Momentuko ez da **erostunik** agertu. Herria

Ezin jakin haatik zer preziotan proposatua zaion lurra **erosdunari**. Herria

Saltegi handien afera xifrea % 2-ez goititu da, **erosdunen** karroan erosiaren balioa % 3-z emendatu delarik. Herria

Erostunak nola eginen du diferentzia "EGUZKIA" eta merkatuko beste etxe pastizen artean? Herria

Behi burtxoratuaren krisia piztuz geroztik **erosdunek** ez dute gehiago onartzen behi esnadun zaharren haragirik. Herria

Uste dut ikusliar eta **erosdun** gutixko izan dutela gehienek. Herria

Ossau/Irati sor markarik ez duten gasnak kantitate handitan saltzeko parada ez dute galdu nahi, jakinki eta **erostuna** merkeagoari lotzen dela komunzki, markako gasna kariagoa parada berezietarako atxikiz. Herria

Hemen baratzekinak, okindegi gauza ala esnaki mozkinak eskainiak izan dira **erostuneri**. Herria

Nazioarteko **erostun** anitzek atun izoztua sasoiko freskoa baino merkeago aurkitu baitute. Herria

Ikus dezagun bada, guztiak Jaunak eginak gaituela, **erostun** berak berrerosiak, Kristoren gorputz bakarraren, hau da Erromako Eliza saindu eta katoliko bakarraren kide garela. Piarres Xarriton

Erran dute xifre horiek izariz kanpokoak zirela, ezin konprenitua dela leku horietan egoitza sozialik ezin eraikia, **erostun** berriek berrehun metro baino handiagoko egoitzak altxatzen ahalko dituztelarik. Herria

Aimé bildots **erostunak** jakin arazten du helduden astelehenetik goiti jinen dela astelehen guziz usaiako tenoretan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erostun bat (5)

---

erostungai *iz* erostuna izan daitekeen pertsona.

Behar berriak asmatzeak esan nahi duena da **erostungaiari** sinetsaraztea ez daukan guztia falta duela Iñaki Segurola

---

erotasun 1 *iz* eroa denaren nolakotsuna. ik **zorotasun**.

Badakizu zer den bene-benetan **erotasuna**, zer zentzugabekeria? Patxi Ezkiaga

Nik ere beti esan dut **erotasuna** eta zentzua ezin bereizi daitezkeenean dela mundua benetan mundu. Patxi Ezkiaga

- **Erotasunak** beldur ematen digu, eta horregatik egiten diegu eroei barre. Joan Mari Irigoien

Errusian zorriei ihes egitea zen arazoa; hemen **erotasunak** inguratzen zaitu. Koro Navarro

Ama hil eta **erotasunak** hartu zuen. Gotzon Garate

Esan ezin ahalako tristeziak joa, Gaiur erregeak Kontseilua bildu zuen, eta, bisir eta emir, ministro eta handiki, denak aurrera agertu zitzaizkiolarik, Budurren **erotasunaren** albistea eman zien. Patxi Zubizarreta

Nolako begiekin ikusten duzu **erotasuna**? Jose Morales

Eri nengoen eta ero nengoen, amorioaren gatibu, baina eritasun hura eta **erotasun** hura ziren, bertzalde, ene hatsa eta ene osasuna. Joan Mari Irigoien

Ahotsean **erotasunaren** zizta nabaritzen zitzaion. Itxaro Borda

Serioski ari da idazlanean, **erotasunaren** ezpain dardararekin. Joseba Sarrionandia

Zeren eta kezka eta mesprezua izan ohi baitira **erotasunaren** ordaina. Joan Mari Irigoien

EAEn egun neurologoek soilik dute **erotasunaren** aurkako botikak emateko eskubidea. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zuen zuhurtzia fededun eta puritanoaren atzean **erotasun** miresgarri bat zegoan, **erotasun** sortzaile eta iraultzailea, zintzoa eta ausarta, ilusio grinatsu bati estu lotua. Juan Luis Zabala

Zahartzaroak ekarri didan erotasunak, **erotasun** funtzionalak, egin du posible lekukotza hau kontatua izan dadin. Karlos Linazasoro

Maitasun [...]: aldi bateko **erotasuna**, ezkonduz edo eritasuna sortu zioten eraginetatik aldenduz sendatzen ahal dena. Xabier Olarra

Egoera bitxi hau zuritzeko, zorotzat jotzen dute Donatien, eta **"erotasun** libertinoa" (--!!) egozten diote. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

1880etan, nahikoa argi geratuz joan zen lobulu frontaletako tumorrek modu askotako sintomak eman zitzaketela: nahiz ernetasun eza, zozotzea eta gogamenaren moteltasuna, inoiz izaera-aldaketa nabarmena eta autokontrola galtzea, nahiz (Gowersen arabera) **"erotasun** kronikoa". Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina jakin beharko genuke, halaber, bizitzak ez duela **erotasun** puntu bat gabe bizitzea merezi. *Next Generation* belaunaldiko idazleek, ulertzen ez duten eta erantzunik eman ezin dioten mundu batetiko **erotasun** sentimendua ez ezik, hustasun elektrikoan desagertu gabe sozialki irauteko, narrazioetan espazio moral eta intimo bat eraikitzeko modua egiten dute. Joan Mari Irigoien

Dagokidan **erotasun**-eremuak salbatu izan nau askotan neure buruaz beste egitetik. Karlos Linazasoro

---

erotegi *iz* zoroetxea.

Nanterreko hiltzaileak bere buruaz bertzerik egin du, Champs-Elysees-koa **erotegian** sartua da. Herria

---

erotika *iz* zerbaitek eragiten duen erakargarritasun bizia, erakargarritasun sexualaren antzekoa.

Nola du izena, boterearen **erotika** deitzen den zera horrek. Iñigo Aranbarri

Erotika nabaria du kopla horrek. Patziku Perurena

Dexente hitz egin dut politikaz eta oso gutxi **erotikaz**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hizkuntzaren **erotikaz** ari nauk, txo. Iñaki Iñurrieta

Atseginez lehertutako piko umo berriaren irudia, azalez larrukara horista lehun guri eta barrenez dena odol gorri gozo eta hazi zuri heze nahaste, aproposa baita **erotikaren** errorik sakonenak adierazteko. Patziku Perurena

---

erotiko 1 *izond* erotikarena, erotikari dagokiona.

Maitasun **erotikoa** hartu du ahotan Ratzingerrek, espiritualtasunetik. Berria - Gaiak

Nondik nora, zer bidetatik igarotzen da gure desioa, harik eta bizipen **erotikoak** eragiten digun ongizate, samurtasun, esker on eta lasaitasun sentipen horretaraino iritsi arte. Luis Elberdin

Gizonaren grina **erotikoak** ernatzeko lilura sekretua. Patziku Perurena

Esango nuke Karmelok erakarpen handiagoa **erotikoagoa** sortzen didala. Patxi Zubizarreta

Ahoko dasta hura, amodioaren dasta, zirrara **erotikoaren** dasta. elizgizonekin egin izan ditut beti ametsik **erotikoenak**. Juan Kruz Igerabide

Cesare Paveseren obran maiz ageri da San Stefano Belbo herriaren inguruan dauden bular itxurako bi muinoenganako obsesio **erotikoa**. Anjel Lertxundi

Fantasia **erotikoen** eremu maiztura. Aingeru Epaltza

Haragizko sinbolo **erotiko** horregatik edo, herejia eta sorginkeria kontuetan ere maiz ageri da pikoa. Patziku Perurena

Ertaroko amodio kanten lirismo kutsu nabaria baitario ote loratuaren eta xoriaren arteko lirismo **erotiko** xahar gorde horri. Patziku Perurena

Benetan axola duena Barojaren deskripzioa da, azalpenaren tonu bizkor larria, eta intimitate **erotikoko** gau horrek gizonari eragiten dizkion alderdi hondagarriak. Josu Zabaleta

Kontakizuneko fraideak azaltzen duen paranoia politiko-**erotiko** hori ez dela neuk asmatua. Xabier Mendiguren Elizegi

Aktoreak antzezten duen pertsonaia hausnartzen ari da zenbat pultsio **erotikoren** enkontrua eta emaitza den hiri bat, eta, hiri guztien gainetik, Venezia. badira gizonezkoak gauean amets **erotikoekin** bakarrik eiakulatu dutenak. Anjel Lertxundi

Emakume gazteak biluzik eta jarrera **erotiko** kilikagarrietan erakusten zituzten irudiak, nahi adina. Oskar Arana

Bi lagun, zein baino zein gihartsuagoak, pose **erotikoak** egiten. Patxi Iturritegi

Pentsatu zuen ez zegoela ordenagailu biluziak baino izaki **erotikoagorik**. Unai Elorriaga

Gorputzaren zatirik **erotikoenak** jantzien irekidurek doi-doi bistaratzen dituztenak omen dira. Joxean Agirre

Neskatila freskoak, izter, ipurmazel eta titi oparokoak, beste batzuk meharrak zumea bezain, deabrukeriaraino **erotikoak**. Jon Alonso

Bi tipo eta zoritxarreko tipa bat makillajez gainezka, hot dog **erotiko** bat gutxi gorabehera. Karlos Zabala

Baimenduta dagoena da **erotikoa**, araua gainditzen duena pornografikoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (literaturaren ingurukoak)

Ohituz joateko, ez dago gaizki literatura **erotikoan** edo film sexualetan inspiratzea. Luis Elberdin

Liburu **erotiko** eta pornografiko ugari irakurri ditut, oso txarrak gehienak. Karlos Zabala

Aldizkari porno, **erotiko** eta espezializatuetan behin baino gehiagotan ikusi nituen halako iragarkiak. Aitor Arana

Hugo Pratt-ek Bafforen soneto **erotikoei** egin zizkien ilustrazioetako batzuk. Anjel Lertxundi

Han, lan-kontuak behingoz ahaztuta txorakeriak esaten genbiltzala, sortu zen solasa, idatzi behar genuela denok ipuin **erotiko** bana. Xabier Mendiguren Elizegi

Ipuin aldi berean tristea eta **erotikoa**, bizitza eta heriotza batera hartzen dituena. Edorta Jimenez

Kontaera **erotiko** nahiz poliziakoren bat. Juan Garzia

James Joycek bere maitale Nora Barnacleri idatzitako gutun **erotiko** bat 360.000 eurotan saldu da. Berria - Kultura

Hurrengo bi ipuinak antologia **erotiko** banatan argitaratu ziren. Xabier Mendiguren Elizegi

-Badirudi beheko ezpaina hozkatuz arnasa estututa jartzeko zorian dagoela, film **erotikoetan** bezala. Ramon Saizarbitoria

Gauerdiko film erdi **erotiko** erdi ezer-ez horietako bat. Unai Iturriaga

Oraindik bada jendea alde batetik poesia mistikoaren irakurketa **erotikoa** egiten duena. Patziku Perurena

Show **erotiko** eta pornografikoz beteriko kalea zen 42. kale ospetsua erabat aldatu da Giulianiren agintepean. Harkaitz Cano

Albertok ez zituen eszena **erotikoak** gehiegi maite -errepikakorrak ziren-. Iban Zaldua

Bideoklip **erotiko** batean. Patxi Iturritegi

Euskarazko lehenengo telefono **erotikoa** zen, era guztietako zerbitzuak eskaintzen zituena. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amets erotiko (3); **amets erotikoak** (3); **erotiko bat** (8); **erotiko eta** (5); **erotikoa da** (5); **erotikoa zela** (3); **erotikoak idazten** (3); **gutun erotiko** (4); **ipuin erotiko** (4); **ipuin erotikoak** (8); **ipuin erotikoen** (4); **liburu erotiko** (3); **lirismo erotiko** (3); **literatura erotikoa** (3); **literatura erotikoari** (4); **literatura erotikoari eskainitako** (3); **oso erotikoa** (3); **poema erotikoak** (3); **sinbolo erotikoa** (3); **telefono erotikoa** (5); **zentzu erotikoa** (3)

---

erotismo **1** *iz* jarduera erotikoetarako joera, erotikoa denaren nolakotasuna.

Lehenik eta behin, esan dezagun hiru erregistro daudela: sexua, sexualitatea eta **erotismoa**. Luis Elberdin

Sexualitatearen adierazpen praktikoa da **erotismoa**, bakoitzak gure sexualitatea bizi dugun modua. Luis Elberdin

Erotismoa eta sentsualtasuna goratzen du Singerrek pertsonaien bidez. Berria - Kultura

Catherine, nahiz eta jende askorentzat erakargarria izan, ez zitzaion atsegin, ez zuen bere **erotismoa** ernarazten. Iñaki Zabaleta

Orain Casanova adinean aurrera doa, nekatuta dago, haren gorputzak eta aurpegiak ez dute garai bateko **erotismoa** transmititzen. Anjel Lertxundi

Zuena, antza, ez da **erotismoaren** mugarrietara iristen, sexu hutsa da, sexu basatia. Lutxo Egia

Erotismoaren ikur baitzen Constance edo Chatterley andrearen eta Mellors basozain eta maitalearen arteko amodio eta sexu harremanen inguruko istorioa. Berria - Kultura

Giza harreman guztietan **erotismo** zerbait ote dago tartean? Xabier Olarra

Erotismoak gure desioaren atean jo orduko, heriotza ere sartu egiten duk **erotismoarekin** batera. Anjel Lertxundi

Bakearen **erotismoak** bere egin gaitzala. Berria - Euskal Herria

Hammerrek beldurrezko zinemaren gailurretako batzuk sortu zituen, eta bidenabar, **erotismoz** eta sentsualitatez zipriztindutako estiloa finkatu zuen. Berria - Kultura

Erotismoaren eta pornografiaren artean egin ohi den bereizketa hipokrita hori. Ramon Saizarbitoria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Desguace Teatrok [...] planetako lehen biztanleek bizi zuten **erotismo** primitiboenera eramango ditu ikusleak. Berria - Kultura

Ez dut sentitu gehiago hain sentsualitate eta **erotismo** zirraragarririk; hasi oinetako behatzetan eta buka buruko ileetan, dena dardara eta zapore nintzen, ni neu osorik gozamen, eztitasun, estasi..., ez dakit. Juan Kruz Igerabide

Erotismo narea zen Klararena, gorputzaren formak eder beteak izanik ere, jantzi zabalen azpian ezkutatzean. Iñaki Iñurrieta

Ez pentsa, hala ere, porno gogorra ikusten genuenik; **erotismo** txatxua zen gehienetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Dantzari gazte baten eskutik **erotismo** berri bat deskubritzen du pertsonaiak. Ibon Uribarri

Kawabataren lan honek arrakasta handia izan du beti mendebaldean, **erotismo** bitxiz betetako kontakizuna exotizismoa indartzeko erabili baita. Ibon Uribarri

"Blai", izerditan edo barne-isuriz blai, alegia, horra hor esan gabe doanaren **erotismo** gorde sublimea. Joxerra Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Kromatismo aldetik, bere artelanek itxura suabea dute; gorputz biluziak eta egunerokotasuna islatzen dituzten margoetan bada **erotismo** ukitu bat, betiere begi bistako malenkoniaren barruan. Berria - Kultura

Erotismo maila altua. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erotismoa eta (6); **erotismoa eta heriotza** (3); **erotismoaren eta** (3); **erotismoz eta** (3); **eta erotismo** (4); **eta erotismoa** (10); **sexualitatea eta erotismoa** (6)

---

erotu, ero(tu), erotzen **1** da *ad* ero bihurtu, zentzua edo burua galdu. ik **zoratu**.

Erotu naizela uste duzu? Josu Zabaleta

Gero, pentsatu zuen gonbidatua **erotu** ote zen bat-batean, eta, izuturik, adi-adi begiratu zion, baina gonbidatuaren begietan baretasun erabatekoa zen nagusi. Jose Morales

-Garbi hitz egizu, **erotuko** naiz bestela! Anjel Lertxundi

Erotua nintzela iruditu zitzaidan. Josu Zabaleta

Beste astebete hemen, eta **erotu** egingo naiz. Bernardo Atxaga

Senarra ere ia **erotu** zait, hor bainabil beti jirabiraka, abesti hori ahopetik kantaka. Mirentxu Larrañaga

Emakumearen iduriz, hainbertze egunkari irakurririk eta telebistan eta irratian hainbertze albistegi ikus-entzunik **erotu** zitzaion osaba. Aingeru Epaltza

- **Erotzen** ari naiz, horixe da dena, hain ikaragarria da guztia. Lopez de Arana
Egunean-egunean **erotzen** ari baitzen izeba, aitaren aldetiko osabarenera joan ginen bizitzera. Juan Kruz Igerabide
Ez dakit zer gertatzen ari den, bainan **erotzen** ari gara Frantzian: [...]. Herria
Askotan **erotzen** dira erleak. Unai Elorriaga
Erotu behar baduk, bakarrik **erotu** hadi. Anjel Lertxundi
-Printzea **erotu** egin zaigu! Patxi Zubizarreta
Eroarena nola egingo dut ordea, **erotua** banago? Koro Navarro
Erotuta ibiltzen dira irakasleak. Berria - Gaiak
-Hi seko **erotuta** hago, ezta? Antton Olano
Satanek, **eroturik**, ihes egin zuen, eta santuak, makila bat harturik, atzetik jarraitu zion. Josu Zabaleta
Ripper zaunkaka sartu zen gelara, **eroturik** bezala. Iñaki Mendiguren
Erotu uste nuen. Txillardegi
Jendea pozez **eroturik** dago. Koldo Biguri
Eperrak, **eroturik**, kaiolako burdinak mozten saiatzen ziren mokoaz, erabat larri. Juan Kruz Igerabide
Oihuka hasi zaie euskal mutilei, **eroturik** antza: [...]. Txillardegi
-Hori ez nuke egingo, ezta **erotuta** ere. Juan Kruz Igerabide
Haien azpian mutiko txiki-txiki bat agertu zen, ile-kizkurra eta hain txukun jantzitakoa, non emakumeek **erotuta** ematen baitzuten. Koldo Biguri
Batzuek uste dute erdi **erotu** edo egin dela, baina berarekin hitz egiten dudan bakoitzean, betiko Stanley zaharra da. Oskar Arana
Bakarrik, erdi **eroturik**, abaildurik sartu nintzen gelan. Josu Zabaleta
Atzo **erotzeko** zorian egon nintzen. Patxi Zubizarreta
Hemen nago ni nerbioetatik **erotzeko** zorian, eta zu trufaz. Oskar Arana
Ospitalean zegoen, **erotzeko** zorian (nerbio-porrotaren mugan), eta margotzea, antza, soluzio edo sendaketa modu bat izan zen berarentzat. Xabier Olarra
Erotzeko modukoa duk. Xabier Olarra
Burrunba **erotzekoa** izan zen. Iñaki Mendiguren
Erotzekoa ere bazen, telefono deietatik hain zintzilik bizi beharra. Pello Zabala
Bi alaba izan zituzten, Marina eta Ada, bi alaba, biak ala biak **erotzeraino** maite zituztenak, senar-emazteek elkar **erotzeraino** maite baitzuten biek ala biek. Felipe Juaristi
Pentsamendu hark **erotzeraino** betetzen ninduen, eta atera etxetik eta euripean ibiltzera joaten nintzen. Bernardo Atxaga
Txarrena, ordea, orain maiteminduta nagoela, **erotzeraino** maiteminduta. Josu Zabaleta
Erotzerainoko oinaze zakar batek hartu dizkio zainak. Anjel Lertxundi
Aitak **erotu** arte edaten zuela ohartzeko aski handia izan zen egunetik, ez zuen sekulan gehiago negarrik egin. Elena Touyarou

2 irud/hed

Erregaiaren prezioa «**erotu**» egin dela onartu eta ekoizpena handitu dezakeen herrialde bakarra Saudi Arabia dela zehaztu zuen. Berria - Ekonomia
-Te-ontzia **erotu** egin zen eta ur irakin txorrotadak botatzen zituen alde guztietara. Iñaki Mendiguren
Ez dira gai kasinoa **erotzen** denean, ekaitz finantzarioa baretzeko. Iñaki Heras

3 (zaio aditz gisa)

Erotu egin al zaio alabari? Oskar Arana

4 (du aditz gisa)

Lanturuka hasi zen ozenki, bere umeek **erotu** egiten zutela, batez ere Sebastianek. Bernardo Atxaga
-Maitasunak **erotu** egiten zaitu, garuna azpikoz gora jartzen dizu, ikuspenak ikusarazten dizkizu, eta, batez ere, min ematen dizu, min handia. Jon Muñoz
Errealitateak **erotzeraino** horditzen zituen, eta, bizitzarekin bat eginik, heriotzak espektroak sortzen zituen. Jose Morales
Jo eta jo hasi zitzaion, beti ahoan, amorruak **eroturik**. Anjel Lertxundi
Musika isildu zen, baina pattarrak **erotutako** basati hark garrasika jarraitzen zuen. Jose Morales
Amaren aldetiko izeba egunetik egunera **erotu** egiten omen genuen, eta aitaren aldetiko osabak zioen garaia baino lehenago hilaraziko genuela. Juan Kruz Igerabide
Denbora-jiratzaile horrek ia **erotu** egin nau, eta itzuli egin dut. Iñaki Mendiguren
Ezertan pentsatzen hasi orduko zutik ginen, izumen ergel batek **eroturik**, ihes egiteko prest. Josu Zabaleta
Gero ezer ez zen entzun, erabat **erotu** gintuzten bi minutuz. Josu Zabaleta
Horrexetan neukala **erotuko** ninduen atsekabea. Hasier Etxeberria
Erotu behar gintuen animalia hark! Josu Zabaleta
Monsieur Le Blanc-ek ezin zuen neskaren desagertzea esplikatu, eta larritasunak eta izuak **erotu** beharrean zeukaten Madame Rogêt. Koro Navarro
Ero hark ere ez al zuen hil arte errege zela uste izan, **erotu** zuen kolpea hartzerakoan erregez mozorroturik baitzegoen? Anjel Lertxundi
Egunkariak etengabe ari dira inbasioari buruz gauzak idazten, eta jendea **erotzen** ari dira, honelakoak esaten baitituzte: [...]. Josu Zabaleta
Nola **erotuko** du isiltasunak, urteetan gauero fusilamenduko deskargak entzun dituena? Koldo Izagirre

5 (era burutua izenondo gisa)

Haien aurpegi **erotuak** eta haien eskuen imintzioak ikusi nituen! Preserbatiboa ipintzen zidan, eta txortan egiten genuen, zaldi **erotuek** bezala. Josu Zabaleta
Zerbaiti heldu nahi zion bakoitzeko, itzuli bizkor bat egiten zion eskuak, sigi-saga **erotu** bat bezala, bila ari zena ukitu aurretik. Josu Zabaleta
Bihotza, etxea eta ohea eskaintzen zizkidala iruditu zitzaion nire desio **erotuari**. Hasier Etxeberria
Hara joango gintuan hirurok, eguzkitan patxadaz etzatzera, eta gaueko kilkir **erotuen** orkestra desordenatuarekin batera gure amets **erotuak** egia bihurtzera. Berria - Kultura

6 ***erotuxe*** *adlag*

6

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina erotu (3); **bat batean erotu** (3); **bat erotu** (4); **batean erotu** (3); **edo erotu** (3); **erdi erotua** (4); **ere erotu** (6); **erotu al** (9); **erotu arte** (4); **erotu bat** (3); **erotu behar** (9); **erotu behar nuela** (3); **erotu beharrean** (11); **erotu beharrean ari** (3); **erotu bezala** (3); **erotu bezala egin** (3); **erotu egin** (75); **erotu egin al** (11); **erotu egin dela** (6); **erotu egin haiz** (4); **erotu egin nintzen** (3); **erotu egin zara** (3); **erotu egin zela** (5); **erotu egin zen** (6); **erotu egin ziren** (3); **erotu egin zituen** (3); **erotu egin zuen** (4); **erotu egingo** (31); **erotu egingo naiz** (13); **erotu egiten** (37); **erotu egiten da** (8); **erotu egiten dira** (9); **erotu egiten zen** (4); **erotu eta** (12); **erotu ez** (3); **erotu gabe** (5); **erotu haiz** (4); **erotu ote** (3); **erotu zara** (7); **erotu zen** (8); **erotu zituen** (3); **erotu zuen** (5); **erotuko naiz** (4); **eta erotu** (5); **eta erotuago** (4); **filologoa erotu** (4); **filologoa erotu egiten** (4); **hori erotu** (3); **ia erotu** (6); **jendea erotu** (3)

begiak eroturik (4); **black erotuta** (3); **black erotuta dago** (3); **erdi eroturik** (3); **erdi erotuta** (5); **eroturik bezala** (7); **eroturik zegoen** (3); **erotuta al** (5); **erotuta al hago** (3); **erotuta bezala** (12); **erotuta dabil** (3); **erotuta dago** (14); **erotuta dagoela** (6); **erotuta daude** (7); **erotuta egon** (3); **erotuta ere** (13); **erotuta ere ez** (5); **erotuta eta** (3); **erotuta gaudela** (4); **erotuta hago** (7); **erotuta nago** (4); **erotuta nagoela** (7); **erotuta nengoela** (4); **erotuta ote** (3); **erotuta zaude** (11); **erotuta zaudete** (4); **erotuta zegoela** (12); **erotuta zegoen** (8); **eta erotuta** (9); **ezta erotuta** (6); **ezta erotuta ere** (6); **guztiz erotuta** (3); **hain erotuta** (3); **seko erotuta** (3)

erotzeko eta (3); **erotzeko moduan** (3); **erotzeko modukoa** (7); **erotzeko zorian** (15); **erotzekoa da** (4); **erotzen ari** (16); **erotzen ari naiz** (3); **erotzen dira** (4); **erotzen dira erleak** (4); **erotzen eta** (3); **erotzen hasia** (7); **erotzen hasita** (3); **erotzeraino maite** (5); **eta erotzeko** (3)

erotze *iz* ero bihurtzea, zentzua edo burua galtzea.

Eromenak, **erotzeak**, munduko gauzarik naturalena izan behar luke, eta zoragarriena, baina ez da hala; eromena, **erotzea**, munduko gauzarik normalena da. Iñaki Segurola

Egun hartan paseatzera atera nintzen ez **erotze** hutsagatik. Xabier Olarra

Atea irekitzera atera zen gizon batek nahi zuen nik kontatzea nire amaren **erotzearen** istorio osoa. Pello Lizarralde

Ni ziur nengoen Nick Valdibia **erotze** bidean zegoela, Nancy nirekin egon baita bere ondotik ihes egin zuenetik. Pako Aristi

---

erotzear *adlag* erotzeko zorian.

Intelektualarena egiten duzu, [...] eta ni zure ezpainak musukatzeagatik **erotzear** nago, hain ederto egiten duzu... Sonia Gonzalez

21-26koarekin Aizpuruk hiru tanto lortu zituen saketik; artekariak izerdi batean eta ikusleak **erotzear**. Berria - Kirola

Harmailetan, bitartean, Errioxako zaleak **erotzear**. Berria - Kirola

---

eroxka *(orobat **eroska**) izond* ero samarra.

Txelek, **eroska** izan arren, badu alderdi on-on bat: esaneko izatea. Gotzon Garate

Klaridade garbiena ukan zuen herriko erdi-txoro oihal-saltzaile Frantzisko **eroxka** harengan, aparteko klaridaderen bat bazegoela ohartzeko. Pello Zabala

Baztertutako izaki kargamentu bat ginen: mozkorrak, inkonpetenteak, ahulak, **eroskak**, argi eta garbi, norbere lurraldeko egoera eta inguruabarretara egokitu eta arazo hauek gainditzeko gai izan ez ginen saldoa, beste lur baterantz penagarriro ihesi. Harkaitz Cano

Gaztetako grinaldi **eroska** haiek. Patziku Perurena

Usainek ez dute beste tokietan bezain luze irauten: haizeak itsasora bidaltzen ditu, ur beltzaren parean joaten dira laino txiki **eroxken** gisa. Monika Etxebarria

Apirilaren azken astean, azken egunetan sartuak gaude, baina udaberri **eroxka** baten lepotik darama burua normalean apiril batez bestekoak. Pello Zabala

Eroxka fama eman zaio edonon. Pello Zabala

---

erozain *iz* eroak zaintzen dituen pertsona.

-Non da **erozain** vienatarra? -galdegin zuen, lotsa izpiz bezain doinu maltzurrez mezulari gazteak. Felipe Juaristi

---

erpe **1** *iz* atzaparra.

Haren kopetako adarrak eta haren ataletako **erpeak** sakoneraino sartu ziren haitzean, eta betiko gorde dira han Satanen eroriko haren aztarrenak. Josu Zabaleta

Katua magalean kiribilka zebilkidan, bizkarrez behera, hankak airean, **erpeak** itxi eta zabaldu. Josu Zabaleta

Panterakumeak eta lehoikumeak erpeka eta haginka defendatzen dira, kasik haginik eta **erperik** irten aurretik. Xabier Amuriza

Entzutetsuak ziren Marroren azazkalak, ez oso luzeak, baina bai gogorrak eta zorrotzak, **erpeak** bezain. Juan Kruz Igerabide

Guztiek dituzte gorputzean basurdeen letaginek eta hartzen **erpeek** utzitako markak. Pablo Sastre

Zeren bistan dena bistan da eta zeren, zirkuetan ez bezala, non Erromako enperadoreek gizonak jaurtiki eta egozten baitzituzten harearat lehoi goseen **erpe** eta atzaparretarat, zezenak izan baikenituen korrida hartan hilkizun. Joan Mari Irigoien

Ezker aldetik txori bat agertu zitzaien, arrano bat hain zuzen, uso dardarti bat **erpeetan** zeramala. Juan Kruz Igerabide

Belatz bat igaro zitzaion hegan eskuin aldetik, **erpeetatik** zintzilik antzara handi bat -oilategiren batetik harrapatua- zeramala. Juan Kruz Igerabide

Tigrearen **erpeak** marratzen du ilargia oihan beltzean. Javi Cillero

Eta nola sartu zizkidan beldurraren piztiak bere **erpeak** eta atzaparrak berriro errai-erraietaraino. Joan Mari Irigoien

Erpe haiek, begi haiek, ez ditiat sekula ahantziko. Agustin Otsoa

Besaulkiaren zur landuari **erpeen** antzera heltzen zioten esku haiek. Agustin Otsoa

Lehoieme amorratuek gorputza betean noranahi saltatzen zuten, aurre egiten zietenen aurpegira oldartzen ziren edo ezustean atzetik harrapatzen zituzten eta heldu eta bertan lurreratzen zaurien mende, hagin indartsuak eta **erpe** makoak ezarrita. Xabier Amuriza

Harmailaren atearen atzetik, Samek orkoaren aurpegi maltzurra ikusi zuen argi gorrixkari esker: **erpe** zorrotzek markaturik zegoen antza, odoletan bustita. Agustin Otsoa

Horrelaxe bizi izan baitzen Ibiñagabeitia jaiki eta erori, erori eta jaiki unean unean zeuzkan indarren eta ahalen arabera bere esku zegoen guztia «**erpe** ta aginekin» egiten euskararen, euskal literaturaren eta aberriaren alde. Berria - Harian

Etsaiaren **erpeetan** hil behar nuen, Mateok arrazoi zeukan. Koldo Izagirre

Ordenagailuz sortutako irudiak ziren, xarma handikoak, eta haietan panpin batzuek -cowboy bat eta astronauta bat- haur sadiko baten **erpeei** eskapo egiten zieten. Aingeru Epaltza

Heriotzaren **erpeetatik** ihes egina zen. Patxi Zubizarreta

2 (hitz elkartuetan)

Ulises eta bere lagunak, berriz, haien atzetik kolpeka zebiltzan, sai **erpe**-okerrak harrapakinarekin bezala. Juan Kruz Igerabide

---

erpedun *izond* erpeak dituena.

Edonork pentsa zezakeen ni mamu bat nintzela, Hannaren nireganako begiradari erreparatuz gero, Erromako berri kontatzen ari nintzaion bitartean; bidutzi bat, mustur-luze eta **erpeduna**, munstro te-edale bat. Joxe Austin Arrieta

---

erpeka *adlag* erpeez atzaparka.

Eta panterakumeak eta lehoikumeak **erpeka** eta haginka defendatzen dira, kasik haginik eta erperik irten aurretik. Xabier Amuriza

---

erpin **1** *iz* mendi, aldapa eta kidekoen alde garaiena, eskuarki zorrotza dena. ik**gailur**.

Mendia non dagoen kokatuta, izan daiteke beheko maldetan klima tropikala, eta goiko **erpin** aldera, jela eta hormaz seko hoztuta egotea. Pello Zabala

Zaro dagoen muinoaren **erpinean**. Koro Navarro

Mendi **erpinetako** elurrak harrotuz datorren hego haizeak harritu du Berdabio. Anjel Lertxundi

Goren **erpinean** kraterrak baitaude, eurek deitzen dietenez; guk, berriz, zintzurrak eta ahoak esaten dugu. Xabier Amuriza

Titanic aipatzen da, baina zenbat eta zenbat naufragio izengabe, hitzen icebergetan **erpina** baizik ez ikustearren. Joxerra Garzia

Piers Bannister ikertzaile eta txostenaren egilearen arabera, haiek bildutako kopurua «izozmendiaren **erpina**» baino ez da. Berria - Mundua

Denok geunden piramidearen **erpinera** begirada josita. Andoni Egaña

Erpin geodesikoaren gainean eserita, Otsabioko hiru gurutzeen eta bi buzoien ondoan egin genuen mokadu bat, zahatoa ere astinduz. Juan Luis Zabala

2 irud/hed

Bat-batean zikoina bat zutitu zen hondakinen **erpinean** . Bernardo Atxaga

Keak atzera-aurrera zirimolatsuak egiten zituen Adaren bular inguruetan, harik eta bularren baten **erpina** jo arte. Anjel Lertxundi

Fatxaden **erpin** triangeluarrak. Karlos Zabala

Bien bitartean, **erpineko** leihoa zabaldu eta andre zahar bat agertu zen. Karlos Zabala

Hiri ezezagun bat, zurezko kupula zaharrekiko eta **erpin** belztuekiko elizak, enborrezko etxe ilunak eta harrizko eraikin zuriak. Jose Morales

Birikak hornitzen dituen birika-zirkulazioak nahiko presio apala izaten du: grabitatearen indarraren kontra odola birika- **erpinera** -hamabost zentimetro inguruko distantzia bertikala- eramateko doia. Irene Aldasoro

Harrapatuz gero, huraxe makila baten **erpinean** daramate etxez etxe gabon-eskea eginez. Pello Zabala

Begian infinitu argi-izpi sartzen dira, eta **erpina** begian duen kono bat eratzen da. Josu Zabaleta

Erpintzat begia eta ointzat begiratzen zaion objektua duen angelu trinkoa da, beraz, beti ikusmenezko piramidea. Josu Zabaleta

Sistema horretan mailak oso markatuak daude: oinarrizko tituluak ematen dituzte unibertsitate batzuek, bigarren mailan daude lizentzia mailakoak ere ematen dituztenak eta azkenean, **erpinean** , goimailako titulazioak eta doktoregoa ematen dituzten unibertsitate ezagunenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Jorge de Montemayor, 1561ean hila eta ondoko hamarkadan bere famaren **erpinean** zegoena. Berria - Kultura

3 muturreko puntua; puntu gorena.

Bi **erpin** horien tartean ditugu Bilboko 3.8 graduko goiza eta Iruñeko 1.8, izotzari goraintziak emanez datorrena. Pello Zabala

Britainia Handian, konparazio, bertako hotz-beroen **erpinak** honako hauek izan dira: hotzena, 1982ko urtarrilean, -27.2; eta beroena, 1990ko abuztuan, 37.1 Apirilak badaki, **erpin** batetik beste muturrera xalto batean aldatzen. Pello Zabala

Bi **erpinak** bateratuz, batez besteko azaroko tenperatura, begira zenbatean tokatzen zaigun: 11.8, Bilbon; 10.9, Donostian; 8.3, Iruñean, eta 7.5, Gasteizen. Pello Zabala

Gure 4 hiriburuetako **erpinei** begira, bitxikeria puntturik badu, egunik beroenak urte diferentetakoak direla. Pello Zabala

Eta justu, egun horietakoak ziren abuztuak eman dituen bero **erpin** altuenak ere. Pello Zabala

Florenten doinu isilak **erpinera** eraman zuen Paulineren atsegintasuna. Karlos Zabala

Oso gogoan ditut oihu kolektibo horiek: behetik hasi, **erpinera** igo eta berriz ere behera etortzen zen haien ozentasuna, Gauss-en kanpai baten eskemari jarraituz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Baloreen **erpinean** baliagarritasuna jarririk, **erpina** lortzeak berak du munta eta ez aldapan gora zapaldu behar izan ditugun bidaideenganako arretak. Anjel Lertxundi

Pasta da hainbatek munduko lehena eta ugariena kontsideratzen duen gastronomiaren **erpina** . Anjel Lertxundi

Ez nikek esango Eliot poesia erotikoaren **erpina** denik... Iñaki Iñurrieta

4 angelu edo poligono baten bi alde, edo poliedro baten bi ertz edo gehiago batzen diren puntua.

Beraiekin nengoenean triangelu aldekide baten erdian bezala sentitzen nintzen, zein **erpinetara** jo ez nekiela. Bernardo Atxaga

Eta triangeluaren **erpin** bakoitzean dorre bana. Alberto Ladron Arana

Zirkuluaren kurba ukitzen duten triangeluen **erpinak** egon daitezela atalen arteko igoera eta eskaileren direkzioetara begira jarrita, lehenengo korridore zirkularreraino. Santiago Iruretagoiena

Zirkulu zirkunskribatua poligonoaren kanpoaldean dago eta haren **erpin** guztietatik pasatzen da; zirkulu inskribatua poligonoaren barrualdean dago, eta haren alde guztiak ukitzen ditu. Jon Muñoz

Erpinaren alde batera eta bestera simetrikoki zabaltzen diren bi azalerek eratzen dute konoa. Jon Muñoz

Talesek erakutsi zuen triangelu bakoitzari zirkulu bat egokiaraz dakiokeela; haren hiru **erpinetatik** pasatzen den huraxe, hain zuzen. Jon Muñoz

Talesen arabera, bi zuzen elkar ebakitzean eratutako angeluetatik, berdinak dira **erpinekiko** aurkakoak. Jon Muñoz

Jarri nintzen ohe gainean zutik, koadroa lau **erpinetatik** iltzatzeko eta hormaren kontra finkatzeko asmoz. Joan Mari Irigoien

Hiru makilatxo lotzen nituen, triedro baten forma emanez, eta, eskuaz lagunduta, triedroaren **erpinaren** gainean mugitzen nuen zilindroa, batera eta bestera. Joan Mari Irigoien

Hurbilago daude orain EAJ, PSE-EE eta Batasuna, bake prozesuko triangeluaren hiru **erpinetako** alderdi nagusiak. Berria - Harian

Piramidearen **erpina** han desagertu zen beren begi nekatuen bistatik. Jon Muñoz

Baten batek joan behar du uvearen **erpinean** eta Ibarretxe da antzara hori. Hasier Etxeberria

5 irud/hed

Bazen han benetako ohe bat, aski dotorea, lau **erpinetan** haga banarekin. Edorta Jimenez

Marfilezko orrazi bat harturik, presaka orrazteari lotu zitzaion; hurrena, soinekoaren **erpin** batez igurtzi zuen begitartea. Patxi Zubizarreta

Eguzkiak beste pauso bat egin zuen, masta **erpinetara** , eta oilarrak ere berriro egin zuen karkara, nagi, beharturik. Edorta Jimenez

Masta luze-luze baten **erpinean** . Koldo Biguri

Ez nuen espero teilatuaren **erpinean** ikurrina ikustea, baina, tira, etxetto zuri hura. Alberto Ladron Arana

Orrialdeko eskumako goi **erpinean** Mundakako barraren argazkia dago. Edorta Jimenez

Buruko adatsa ez bezala, beltz ageri zen angelu horren **erpin** oihantsua. Aingeru Epaltza

• 6 *izond* aldapa pikokoa.

Ordu bata aldera irten ginen handik, eguzki bikain baten pean, zegokiona ez zen gailur baten hegi **erpinean** . Juan Garzia

Egurrezko eskailera ilun eta **erpin** batzuetan gora hartu nuen. Anjel Lertxundi

Tximiniak buruturiko teilatua zirudien menditxo antzeko bat, **erpin** eta iluna. Koldo Izagirre

Ubago errekaren ezkerraldeko ertzean, eta zubi zaharraren ondoan, Altzaiko arbelezko teilatu **erpinak** gogoratu zaizkit. Txillardegi

Aldapa luze, nekagarri eta **erpinean** gora. Txillardegi

Kanpandorrerako atea zabalik, eskailera hertsi **erpinetan** gora abiatu naiz arnasestuka. Txillardegi

Hurrengo xaletari, ezezaguna hau ere niretzat, arbelezko teilatu **erpinekoari** , Muskildi deritzo. Txillardegi

Barra ondoko aulki **erpin** batean eseri nintzen. Joxe Austin Arrieta

7 (izenondo gisa) muturrekoa.

Arrazoia duela kontu honek esan behar da, aurreko bero-punta **erpin** horiek ikusita. Pello Zabala

Noski, koska guztien punta **erpinenak** , horiek dira markak hautsi-ez-hautsi hor ibiltzen direnak. Pello Zabala

8 ***erpineko*** *izond* muturrekoa.

Hotz-bero **erpinekoak** . Pello Zabala

Begira diezaiogun, osorik hartuta, zein datu **erpinekoak** ekarri izan dizkigun. Pello Zabala

Irlanda aldeko erromantze aspaldikoetan ere, auskalo noiztik, Haritza eta Gorostia ageri dira urteko bi puntu **erpinekoetan** . Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erpin batean (4); **erpinaren inguruan** (3); **erpinetara jo** (3); **eta erpin** (3)

erpindu, erpin(du), erpintzen **1** da *ad* erpinago bihurtu.

Sagain-Zelaitik aurrera, bidea **erpindu** egin da. Txillardegi

Takoien gainean hankak goi, gona laburretan ipurdia **erpindurik** , aldakak zabal, gerria estuago guran, bularraldea tente hanpaturik, lepoa garondorantz luze. Edorta Jimenez

Joseluk ezjakintasunezko imintzioaz kizkurtu zuen gorputza, eskuak paraleloan goratuta eta sudur-ezpainak kopeta aldera **erpinduta** . Josu Landa

2 irud/hed

"Nola deitzen diote zuen aitari?", moztu zion Josebak. "Nola? Esan ezak hik", **erpindu** zen Martin. Bernardo Atxaga

---

erpuru **1** *iz* hatz lodia, eskuko beste hatzen aurrez aurre jar daitekeena; oineko behatz lodia.

Betazalak bustita eta itsaskorrak zituen ostera, eta **erpuru** batekin eusten zien begi-ordeei, musuzapi melatuarekin igurzten zituelarik. Mirentxu Larrañaga

Erpurua zurrupatzeak hortz arazo larriak ekar diezaieke haurrei. Berria - Gaiak

Muturrean, beregandik hurbilen, Hagrid zegoen, eta hark begiratu eta dena ondo zihoan seinale egin zion **erpuruak** altxatuz. Iñaki Mendiguren

Hil aharia eta, haren odoletik harturik, igurtzi Aaronen eta beronen semeen eskuineko belarria eta eskuin eskuko eta eskuin oineko **erpuruak** , eta isuri gainerako odola aldare inguruan. Elizen arteko biblia

Erpurua billeteen ertz maiztuen gainetik lerratu nuen. Alberto Ladron Arana

Hatz erakuslearekin batera **erpurua** ere ahoan sartu eta atzeko hagin bat atera zuen. Anton Garikano

"Haybet, ni jeneralaren operadore pertsonala nauzu", biboteari **erpuruaz** eta erakusleaz tiraka. Juan Kruz Igerabide

Itsumustuka hasi zen euliaren bila bi atzamarrez, eta behin harrapatu zuenean, **erpuruaren** eta erakuslearen artean zanpatu zuen, nahaski gris bihurtzeraino. Lopez de Arana

Begiak jaitsi, eta **erpuru** eta erakuslearen hatz-puntak busti zituen ezpain artean. Anjel Lertxundi

Erpuruarekin tinko sakatuta eduki zuen botoi beltz distiratsua. Mirentxu Larrañaga

Berberak ziren lepondoa estutu zioten **erpuruak** . Anton Garikano

Harryk begiratu eta gizon hura bere **erpuru** zabalaz aizkora distiratsu baten xafla igurzten ari zela ikusi zuen. Irrika bitxi bat sentitu zuen Durant jaunak, urratuaren ageriko muturrean **erpuru** -azazkala pausatu eta beheranzko bidea marraztekoa, askatutako puntuen marra finak neskaren oinetako baxuen gaina harrapatu arterainokoan. Iñaki Mendiguren

2 irud/hed

Ellen antxume-larruzko bere eskularru berrien **erpuru** urratua hatz erakusleaz igurtzitzen ari zen, urduri. Lopez de Arana

---

erra ik **herra**.

---

errabia *(orobat **arrabia** g.er.)* **1** *iz* amorrua, haserre bizia.

Ez nekien zein **errabiak** erretzen zizkidan muinak. Itxaro Borda

Errabia hamar egunetan bildutako kolpe guztiez. Aingeru Epaltza

Guztia bota nuen, disgustuz eta **errabiaz** mahaiaren erdira, artean, apezak eta bereterrak ziliportatuz. Itxaro Borda

Mojak amaren zesarea kontatzen zidan: marmolezko mahai gainean utzi nindutela, hilda nengoelakoan, eta nire amaren ahizpa batek **errabiaz** "ume madarikatu hori" esan zuela, nire kulpaz ama hiltzeko zorian zegoelako. Ramon Saizarbitoria

Jatsutik alde egin zuen, samintasuna bihotzean eta **errabia** gorputzean. Elena Touyarou

Joango naiz manifarat, abendoaren 10an, **errabia** bihotzean. Herria

Gero, tristurak **errabiari** eta amorruari leku egiten ziola, xuxenean joan nintzen amaganat, jauzkor eta hiros: [...]. Joan Mari Irigoien

Joanttok nekez irakur zitzakeen zigor desberdinak bildu zituztenen izenak, eta bi emazteenak aurkitu zituenean, **errabiak** harturik, orrialdea idoki zuen eta esku artean zimurtu. Elena Touyarou

Orenak iragan ahala, **errabia** haziz zihoan gure erraietan. Aingeru Epaltza

Errabiak gaina hartzen ziola hauteman zuen, zintzurrean listua irensteko trabatzen zuen korapilo bat egiteraino. Elena Touyarou

Errege guzietarik eztiena eta amualtsuena -sobra ezti eta amultsua, ezen bortitzago izan balitz, bere eginbideak hobeki beteko zituen eta bere erresuma gaixtaginen **errabiatik** zainduko zuen. Xipri Arbelbide

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haserre zegoen, **errabia** gorrian aitarengatik, bere buruarengatik, mundu guziarengatik. Elena Touyarou

Halaxe esaten zien behintzat amonak berari eta bere ahizpa Karmeleri, **errabia** handi batek errabiaturik: [...]. Joan Mari Irigoien

Eta, ohi ez bezala, nigarrez hasi zen, **errabia** errabiatu batek harturik. Joan Mari Irigoien

Mandrun abertzale buruarekin istripuz hitz egin nuen eta emazteok, politika libidoarekin bideratzen genuela errepikatu zidalarik, gaitzeko **errabiak** hartu ninduen. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan)

Errabia eraso batengatik, bere alaba eta biloba galdu zituen. Elena Touyarou

Eta Sararen **errabia** eta porrot sentsazioa, atsoak alde egin zuenean. Joan Mari Irigoien

4 *ipar adkor* tema, gogo bizia.

Ezindurik ere, zaharren laneko **errabiak** zur eta lur aldatzen ninduen. Itxaro Borda

Baina ororen gainetik gizon zardaiaren bizitzeko gustua zein **errabia** amiratzen zituen, auzoen erran-merran larrutzaileei axolagabe zegokiela. Itxaro Borda

Bi eguneko ihesaren parada baliatu nahiz eta Santiagorako bidea segitzeko **errabia** nitaz jabetua baita, eskapatu naiz berriz Biarno zoko zahar honetatik. Piarres Aintziart

Eta nork galdu laneko **errabia** ! Herria

Gazako lur zerrenda hortan bere jandarmak hedatu ditu bakearen zaintzale lanean berma diten eta ez dezaten Hamasekoek beren ukaldi terrorista hetarik egin gehiago, ez-eta juduek ordaintza-**errabia** hura erakuts. Herria

5 eritasun kutsakorra, nerbio sistemari erasotzen diona, berez txakurrarena dena, baina ausikiren bidez gizokia ere jo dezakeena.

Lleidako Unibertsitatean garatzen ari diren proiektuaren bidez, hiesaren, tuberkulosiaren, **errabiaren** eta diabetesaren kontrako antigorputzak sortuko lituzkeen artoa sortu nahi dute. Berria - Gaiak

Bost pertsonaren atzetik dabiltza Frantzian, **errabia** izan dezaketela eta. Berria - Gaiak

Europako Batzordeak herritarren laguntza eskatu du, Bordelen (Frantzia) txakur batek **errabiaz** kutsatu bide zituen bost pertsona aurkitzeko. Berria - Gaiak

Errabiaren kontrako xertoa. Herria

Arga ibaia gainditzen duen zubia, **Errabiaren** zubia izendatua zen; erdiko harroinaren itzulia hiruetan egin behar zuten abereek, eritasun hori ez biltzeko. Piarres Aintziart

Bere zakurra hil nahi duenak **errabia** duela erraiten du. Herria

6 ***errabian*** *adlag* haserre bizian.

Joanttok eskuak kendu zituen, beltzuri trufari bat egin eta lekutu zen, durduzaturik eta **errabian** uzten zuela. Elena Touyarou

Eskuindarrak **errabian**, sozialixtak hasarre, Batasuna ere ba funtsean, Ibarretxe-ren planarekin duela 25 urteko hutsak errepikatuko direla eta besterik ez. Herria

Neure buruari hitzeman nion Kattinari zehaztapenak gero emango nizkiola, ez baininduen nehoiz egiazki kexu **errabian** ezagutu! Itxaro Borda

Gaitzeko **errabian** zen. Itxaro Borda

· **Errabia** gaixtoan debrua bezala. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errabia bihotzean (5); **errabia errabiatu** (4); **errabia errabiatu batek** (3); **errabia eta** (3); **errabia hori** (4); **errabia hura** (3); **eta errabia** (6); **eta errabiaz** (3)

---

errabiarazi, errabiaraz, errabiarazten du *ad* errabiatzera behartu.

Denbora libre gehiena, ostatuan pasatzen zuen, Sud Ouest irakurtzen, neska gazteak **errabiarazten**, apur zeukan hiztegiaz ele gordinak ahoskatzen eta, basoek eman ahala edaten. Itxaro Borda

Errabiarazten nau jakiteak gaur, Alkibiadak baizik ez zuela bere burua salbatu, eta nola salbatu, Atena trahituz! Itxaro Borda

Eta herrira jaitsi naiz, Labakaeneko bi zakurrak **errabiaraziz**; eta segidan Labarganeko Farola eskuinean utzi, eta atzetik, Dorreoste kalexka meharretik, Plaza Barrira. Txillardegi

Azkenean doi bat nardatua mutikoak gora gora erraiten du, baina batere bati edo besteari galdeka ari balitz bezala, hola, bere buruari bezala, halere Ermita eta Basoi puxka bat **errabiarazteko** gisan: [...]. Michel Oronoz

---

errabiatu, errabia(tu), errabiatzen **1** da/du *ad* amorratu.

Konpetentziakoek, bereziki Isabel Sanjose urdesa hantuste horrek, izanen zuten berriz zertaz **errabia**. Aingeru Epaltza

Azken egunetan lantokian bizi izan nuen askatasunari akabaila ematen baitzion, erabakiak **errabiatuko** ninduela uste zukeen Eskalatzaileak. Aingeru Epaltza

Erran gabe doa Ttipik bere ingurukoak **errabiatzeko** moduko ikasketa-orri distiratsua aurkezten ahal zuela fraideenekoa bukatzean. Aingeru Epaltza

Eta mendebal haizea non sortzen den, han ibiltzen da amorratuen, **errabiatuen** eta ankerren. Edorta Jimenez

Peloponizako gerla denboran bakezaleen aldera sutan **errabiatu** zen Aristofanes hura ere! Itxaro Borda

2 (era burutua izenondo gisa)

Zubiri pasatu ginuen eta errabiaren zubia: "Zubi pean hiru aldiz pasatzen den zakur **errabiatua** sendatuko da". Michel Oronoz

Behin haserretzen bazen, haren kolerak ez zuen ematzeko husgunerik, ez baretzeko atseden-lekurik edireiten: aitzitik, handitu eta areagotu egiten zitzaion, harik eta mihian eta odolean lehertzen zitzaion arte, or **errabiatu** bat iduri, adausia eta ausikia baterat zituena. Joan Mari Irigoien

Bazirudien ukabil itxiak, buru **errabiatuak**, sorbalda hanpatuak soinetatik bereizten zirela, batzuk besteen gainean biribilkatzen zirela. Karlos Zabala

Eta lekua diskretu samarra zenez, musuka **errabiatuan** hasi ginen. Txillardegi

Gose **errabiatua** bazina ere zer ezin zenezake nihundik jan? Menane Oxandabaratz

Behar gorria sentitzen nuen, **errabiatua**. Txillardegi

Ene irakaslea irudikatu nuen, ikaran, etsai **errabiatuez** inguratua. Aingeru Epaltza

Eiheralarreko erretore zaharra zen, beaumondar **errabiatua**. Aingeru Epaltza

Suhuskuneren hiltzaile ustezkoak atzematea erdietsi zuen: nor eta bi jaun, Armendaritze eta Donoztiri, katoliko **errabiatuak** biak. Aingeru Epaltza

Irri-karkara betartean izozten zitzaiola, zaldun **errabiatua** are **errabiatuago** jarri zen, eta, bere lagunei beha paratzen zelarik, erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Baina areago piztu zuen nigan Bixentarekiko errukia, areago berarekiko gupida, nola edo hala, barrenak eskaturik, berrikusi eta laztandu nahi **errabiatua** baino. Txillardegi

Armada bateko nola besteko gizonak, gorputz gazte zaintsuak, bizitzeko, maitatzeko eginak, ama baten semeak denak, gerlan bortxaz ari edo **errabiatuak**... noren izenean ari, zeren zaintzeko, noren kontra? Michel Oronoz

Paueko sarjentua **errabiatua** zen hartara. Eneko Bidegain

3 (era burutua adizlagun gisa)

Eta mendebal haizea non sortzen den, han ibiltzen da amorratuen, **errabiatuen** eta ankerren. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errabia errabiatu (4); **errabia errabiatu batek** (3); **errabiatu bat** (3); **errabiatu batek** (4); **errabiatu batzu** (3); **gose errabiatua** (3)

---

errabino **1** *iz* juduen artean, erlijio komunitate bateko burua.

Aita eta aitona **errabinoak** zituen -*hasid* edo *hasidim*, guztiz zorrotzak beraz-, eta horixe zuen berak ere, **errabino** izatea, etorkizuna. Koro Navarro

Ezagun bat baino ez nuen aurkitu: **errabino** bat, agnostiko bihurtu eta bere lana utzia. Koro Navarro

Errabino batek, bibote txiki bat eta bere ile gominadunarekin ondo ematen zuen koloreko txanoa zeramatzanak, hilaren gorazarrea egin zuen, ingelesez. Koro Navarro

Haren ondoren, bizar txikiko **errabino** zahar bat, Alemaniatik iheslari etorria, eltze bat ematen zuen kapela beltz bat jantzita, alemanez jardun zen. Koro Navarro

Gaixoak sendatzen zituen **errabino** baten berri entzun zuen orduan, eta egunak eman zituen gizon haren bila. Xabier Aranburu

Errabino asko higikunde honen kontra agertu zen, hasidismoak Jainkoarekiko komunikazio intimoa eta katartikoa proposatzen baitu. Koro Navarro

Kafetegian aurkitzen ditudan gehienak gizonezkoak izaten dira: neu bezalako mutilzaharrak, idazle-nahiak, irakasle erretiratuak, batzuk doktorego titulu badaezpadakoak dituztenak, eliztarrik gabeko **errabino** bat, judu gaiak margotzen dituen margolaria, itzultzaile batzuk, Poloniako eta Errusiako etorkinak gehienak. Koro Navarro

Damu zen orain **errabinoa** Jainkoaren izena aipatu izanaz. Koro Navarro

Errabinoak ile xerlo bati tiratu zion. Koro Navarro

Errabinoak ondotxo zekien Satan ari zitzaiola hizketan. Koro Navarro

Zergatik esan zidan **errabinoak** *mazel tov*, eta ez zidan zorte ona opatu alemanez? Anjel Lertxundi

Errabinoaren emazteak ohe bat ekarri zuen, lastozko koltxoia zuena, eta tapakiak. Koro Navarro

Errabinoaren arreba, Hinde Shevach, Neustater **errabinoaren** semearekin ezkondu zen, Chaim Mattos izeneko batekin. Koro Navarro

Koalizioko gobernua «gaizkileen arteko hitzarmena» dela salatu zuen Dov Lior **Errabinoen** Kontseiluko buruak. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errabino-familia batean jaio zen Singer, Talmud eta Tora liburuak izan ziren bere heziketaren oinarriak, eta goitik behera morala den ikuspegia erabili zuen bizitzan bezala idazlanetan ere **Errabino** ikasketak egiten diren apaizgaitegi edo goi mailako eskola. Berria - Kultura

Han, **errabino** auzitegi baten lehendakari bihurtu zen Singerren aita. Koro Navarro

Itsasoko arrainek duten lege berak agintzen zuen **Errabino** auzitegietan ere: handiek txikiak jaten zituzten. Koro Navarro

Ze **errabino** klase zen ba? Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Judu-**errabino** baten hil osteko garaipena [...] Dionisos eta Herakles bezalako kondairazko "erdijainko" ahaidetuen lehenagoko garaipenen maila bereko balentria pagano bat zen. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egin zuen errabinoak (6); **errabino bat** (3); **errabino baten** (4); **errabinoa ez** (3); **errabinoak bere** (7); **errabinoak bere artean** (3); **errabinoak bere buruari** (3); **errabinoak ez** (5); **errabinoak ez zuen** (4); **errabinoaren emazteak** (3); **errabinoaren semeak** (3); **esan zion errabinoak** (6); **esan zuen errabinoak** (11); **eta errabinoa** (4); **eta errabinoak** (4); **galdetu zion errabinoak** (3); **galdetu zuen errabinoak** (4); **henne errabinoaren** (3); **nechemia errabinoaren** (3); **pentsatu zuen errabinoak** (3); **zen errabinoa** (6); **zion errabinoak** (10); **zion errabinoak bere** (3); **zion errabinoari** (5); **zuen errabinoak** (32); **zuen errabinoak bere** (3); **zuten errabinoa** (3)

---

errabinoar *izlag* errabinoari dagokiona.

Erraz ikus daitekeenez, debeku hori, egitura antitetikoa eta **errabinoar** itxura tipikoa daukana, ez da era hertsi eta absolutuan ulertu behar, baina era murrizgarrian, hots, soilik gai berezi batzuei buruz, egileak jada aipaturiko batzuen kasuan bezala. Xabier Kintana

---

erraboil **1** *iz* lur azpiko zuztar lodia, hosto gisako geruza mamitsu batzuek biltzen duten begi batek osatua, urtero landare berria ematen duena.

Esperlano-okela xehatua tartekatu hor-hemen, eta onddoak, errefauak, tipulak azenarioak, babak..., txiki-txiki eginik dena; eta ez legokek txarto beste **erraboil** batzuk ere eranstea, ezta? Jose Morales

Buru handia zuen, globo-itxurakoa eta koipetsua; izerditan egoten zen uda eta negu; eta erabiltzen zuen kapela handi biribilak, alde batera okertuak, **erraboila** bat ematen zuen beste baten gainean hazia. Irene Aldasoro

Askoz lirikoagoa eta ederragoa izan zen zoramenaren iturria: tulipanak, edo hobe esanda, tulipanen **erraboilak**. Iñaki Heras

2 (anatomian) zenbait organotako ik **erreboilo**[2].

Erraboilak baginako sarrera inguratzen duten bi egitura sendo dira; kitzikapen sexualean handitu eta odolez betetzen dira. Luis Elberdin

Glandearen, klitoriaren zurtoinaren, zuztarren eta **erraboilen** arteko lotura nabarmendu zuen Sherfeyk. Luis Elberdin

---

errabote ik **errebote**.

---

errada *iz* suila.

Montzoi garaian euria egunero jasaka izaten da, **erradaz** botata bezala. Gotzon Garate

---

erradar ik **radar**.

---

erradiadore **1** *iz* berogailu mota, ur beroa daramaten elkarren ondoko hodiak osatua.

Gure aitak geletan berogailuak jarrarazi zituen **erradiadoreek** funtzionatzen ez zutelako. Fernando Rey

Erradiadorera hurbiltzen zen, epelera. Fernando Rey

Etxera joan behar dut eta nire logelan geratu **erradiadorearen** ondoan eserita. Koro Navarro

Erradiadorearen gainean, nire galtza bustiak lehortzen jarrita. Anjel Lertxundi

"Belzkeria" esaten zion mendiko ibilaldietara hiriko zapatak jantzita joateari; [...] egongelan zapatak erantzi eta hankak **erradiadorearen** ondoan berotzeari. Fernando Rey

Orain gas naturala ekarri dute, eta **erradiadore** baten ondoan jartzen naute. Pako Aristi

Nire gelako **erradiadoreak** ur-tantak galtzen ditu. Anjel Lertxundi

Erradiadoreak herdoilak janda daude. Anjel Lertxundi

Urak irakin egiten du **erradiadore** batzuetan. Josu Zabaleta

Lantegiak 160 langile ditu eta **erradiadoreak**, frijigailuak eta kafe-makinak egiten ditu. Berria - Ekonomia

Galipotaren usaina, koipearena, **erradiadore** elektrikoarena, soldatzeko burdinarena, egurrentzako kolarena, tabakoarena eta gainerakoena. Jesus Mari Mendizabal

2 eztanda-motorrak hozteko erabiltzen den hodi saila, ur hotza daramatena.

Alboko aire sarrerak, motorra hozteko dauden **erradiadore** erraldoiak elikatzen dituztenak, forma biribildu eta aerodinamikoa dute, atzealdera doan airea ahalik eta gutxien nahasteko. Berria - Kirola

---

erradiaktibitate ik **erradioaktibitate**.

---

erradiaktibo ik **erradioaktibo**.

---

erradial *izond* erradioz osatua dagoena; erdigunetik periferiara doana.

Aurpegia estalita zeramaten zortzi solidariok, zerra **erradialez** eta lan-jantziez hornituta. Txema Ramirez de la Piscina

Handik gutxira nabarmen agertu dira errotarri baten bi hozka **erradial**. Pello Lizarralde

Lakoff-en egiturak erabiliz, teoria zientifikoa eredu-familia gisa ulertzen da, horizontalki artikulaturiko egiturak, bertikalki hierarkizaturiko egiturak eta egitura **erradialak** dituena. Askoren artean

Biraketa-mugimenduak, mugimendu **erradialak** (gauza bat begirantz edo begitik urrunduz mugitzen denean), eta abar beste horrenbeste informazio-iturri dira espazioari buruz. bertan garbi azaltzen zen estatuko errepideen mapa **erradiala** zela, kamino guztiak Madrilen, zentroan, hasi eta bukatzen zirela. Josu Zabaleta

Berriki egindako esperimentuek erakutsi dute besoko arteria **erradialeko** odola 21,5 ºC-ra jaitsi daitekeela eta, aldi berean, gorputzeko tenperatura zentrala bere 37 ºC-an mantendu. Irene Aldasoro

---

erradiatu, erradia, erradiatzen du *ad* zerbaitek beroa eta kidekoak igorri.

Fisikan ikasia dugu nola edozerk bere berotik botatzen duen, nola **erradiatzen** duen daukana, pixka izan arren, aldamenean ezer hotzagorik badago. Pello Zabala

Lur-azalaren beroaren intentsitatea ere markatzen du latitudeak: gauez, batez ere, lur-azalak zenbat bero galtzen duen, atmosferara **erradiatuz** eta aireetara igorriz.Gau oskarbiak egokitzen direnean, ordu luze ilunotan, bero apurrak **erradiatzean**, izotz hormatsuak zuritzen dute lur zorua. Pello Zabala

---

erradiazio **1** *iz* zerbaitek beroa eta kidekoak igortzea.

Zeru lainatuak ez du uzten **erradiaziorik** gerta dadin. Pello Zabala

Eguzkiaren **erradiazioa**, zuzenean, bero egoteko erabiltzen dugu. Irene Aldasoro

Eguzkiaren **erradiazioa** da kometaren izotza lurruntzeko arrazoi nagusia. Berria - Gaiak

Eguzkia 60 gradutara iritsi orduko, **erradiazioaren** indarra ia bete-betea da, eta zentimetro koadroko 1.4 kaloria emanen ditu. Pello Zabala

Airea zenbat eta garbi-gardenago, orduan-eta **erradiazio** gehiago. Pello Zabala

Erradiazioa jarraitua bada, berriz, oreka normalari eusteko baino bizkorrago desegiten dira epidermisaren geruza basaleko zelulak. Irene Aldasoro

Onkologistarekin tratamendu gogorra erabaki genuen, **erradiazioa** eta kimioterapia batera. Joseba Sarrionandia

Euskal Herrira datozen haurrak ez ziren jaio hondamendia gertatu zenean, baina zentralak **erradiazioa** zabaltzen jarraitzen du. Berria - Harian

Txernobil inguruko **erradiazioa** «maila onargarri bateraino» jaitsi dela esan zuten Txernobil Foroko kideek irailean. Berria - Gaiak

Erradiazioa jasan duten pertsonek minbizia garatzeko arrisku handiagoa dute. Berria - Gaiak

Sintomak, hala ere, ez dira beti antenengandik urruntzean desagertzen; mikrouhinen **erradiazioa** pilatu egiten da gure gorputzean. Berria - Euskal Herria

Begiaren sentikortasuna oso hurbil dago, izan ere, **erradiazioaren** teoria kuantikoak ezarritako azken muga teorikotik. Irene Aldasoro

Kimika ikasi zuen Kanadan eta **erradiazioaren** biologia Erresuma Batuan. Berria - Harian

Badakigu Txernobilek zenbat **erradiazio** eragin zuen eta non jaso zen, eta datu horiekin kalkulatzen ditugu ondorioak. Berria - Harian

Laino erradioaktiboak Minsk aldera jo zuenean, ez zen ihes egiterik izan: bost lagunetarik bat bertan hil zen, **erradiazioaren** ondorioz. Berria - Kultura

Ordubetean, gai erradioaktiboak **erradiazioa** igortzeko %50eko probabilitatea du. Fernando Morillo

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Frantziako CRIIRAD institutuaren ikerketek Maddalena inguruko kostaldean **erradiazio** handia dagoela diote. Berria - Mundua

Erradiazio txiki batek ez du eragin larririk sortzen, zelulen ugaltze-tasa egokitu egiten baita galera berdintzeko. Irene Aldasoro

Erradiazio islatua deitzen zaio fenomeno honi. Pello Zabala

Sakelako telefonoek sortzen duten **erradiazio** magnetikoa kaltegarria da giza zeluletako geneentzat. Berria - Gaiak

Eguzkiak badu, hala ere, **erradiazio** ultramore pixka bat; epidermisak xurgatzen du hartatik gehiena. Irene Aldasoro

Sudurreko usaimen-nerbioen zelulek **erradiazio** infragorria igortzen dutela. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Izan daitekeen **erradiazio** kantitate txikiena da kuantua. Irene Aldasoro

Europan barrena, Eskandinaviako iparralderaino heldu zen Txernobilek isuritako **erradiazio** hodeia. Berria - Gaiak

Erradiazio-lainoak dira beste mota batekoak: Oraingoan ez da airea horizontalki, bailara batetik bestera pasatzen. Pello Zabala

Ontziak ekaitzen uhinak ez ezik **erradiazio** gerriko berri bat ere aurkitu du Saturnoren inguruan. Berria - Gaiak

X izpien arriskua ez da ohikoa, baina beste **erradiazio** mota batzuk oso arruntak dira. Irene Aldasoro

Airearen gardentasuna, modu batera edo bestera aldatzen denean, lurraren **erradiazio**-balantzeak koska batzuk jasaten dituelako. Pello Zabala

Erradiazio kontua da: alegia, airearen jaitsiera-igoera bertikala, nahiz eta hedadura txikikoa izan. Pello Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hauts-pila ikaragarriak bidali zituen [Krakatoaren erupzioak], eta eguzki-**erradiazioaren** % 25 inguru murriztu zituen, bere laurdena. Pello Zabala

Bondik grabitate-**erradiazioa** ikus zitekeela frogatu zuen. Berria - Gaiak

Iturri isotopiko batek bidalitako gamma **erradiazioa** hezurrean zehar igaroarazi eta distira-neurgailu baten bidez detektatzea. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duten erradiazio (3); **eguzkiaren erradiazioa** (4); **erradiazioaren ondorioak** (3); **erradiazioaren ondorioz** (8); **erradiazioaren ondorioz denera** (3); **eta erradiazio** (5); **sortzen duten erradiazio** (3); **zenbat erradiazio** (3)

---

erradiestesia *iz* erradiazioak, eskuarki elektromagnetikoak, atzemateko sentiberatasun berezia.

-Harreman estua du geomantzia eta **erradiestesiarekin** -erantzun zidan. Alberto Ladron Arana

---

erradikal *(orobat **radikal** g.er.)* **1** *izond* errotikakoa; muturrekoa.

Ekintzaile **erradikal** batek nahitaez dogmatiko bat izan behar duela. Joxe Azurmendi

F. W. Foerster, Municheko Unibertsitatean pedagogiako irakaslea 1914tik 1920ra, antimilitarista, politikaren teoriko guztiz kritikoa, pazifista **erradikala** izan da. Joxe Azurmendi

Quine enpirista **erradikala** da, eta "Enpirismoaren bi dogma" (1951) artikuluan idatzi zuenez, ez du aprioriko justifikaziorik onartzen. Askoren artean

Gazte talde **erradikalen** xenofobiaren arazoa. Joxe Azurmendi

Infernuetatik egin zuen Dantek ere bere eskakizun **erradikala**, poesia eta imajinazio iniziatikoa direla ezagupen ororen oinarri. Joseba Zulaika

Liberala izanik, era berean, ez zen liberal ortodoxoa izan, ez behintzat gaur egun termino horri ematen zaion karga **erradikalean**. Iñaki Heras

Aldaketa **erradikala** izan zen, eta onuragarria Albertorentzat: ordu arte "usnatutako" oroitzapen horiek guztiak gogotik kentzea ezinezkoa izango bazitzaion ere, apurka-apurka bere memoriaren jokaera normaltasunera itzuli zen, eta baita bere usaimena ere. Iban Zaldua

Ez dut ikusten ekintza **erradikal** bat zergatik pentsamendu dogmatiko batekin identifikatu behar den. Joxe Azurmendi

Periklesen garaiko Athenaiko demokrazia **erradikalean** ere ukaezina baita sofistikaren eragina. Askoren artean

Ia konduktismo-mota guztiek (konduktismo watsondarra, neokonduktibismoa, konduktismo **erradikala**, etab.) gogo-egoerei erreferentzia egitea gainditu nahi dute. Askoren artean

Autore honek badu, bere ateismo **erradikalean**, pizkundeari buruzko testu adierazgarria. Joseba Zulaika

Kierkegaard bera gai honetan oso **erradikala** da eta, bide batez, errespetu handia merezi duen gizon fededuna. Askoren artean

Grosrouvre, berriz, Girolamo Cardano baino askoz ere **erradikalagoa** izan zen; hark ez zituen, ez bederatzi, ez ehun eta hogeita lau liburu erre, bere idazlan guztiak baizik. Jon Muñoz

Jakintzaren arbola argitaratu zen urtean, hain zuzen, hautsi zuen idazleak Alderdi **Erradikalarekin**. Josu Zabaleta

2 (adizlagun gisa)

Nola bizi nintekeen kinka hartan, eta are gehiago gazte-denboran, denak **erradikal** eta intolerante agertzen garen adin horretan? Karlos Zabala

Hegel-ek adina edo **erradikalago** bereizten du natura eta historia, eta formulazio bikainak ditu. Joxe Azurmendi

• **3** *iz* pertsona erradikala.

Ez soilik prozesuaren apologista instituzionalen aldetik, baita aurkako **erradikal** sutsuen aldetik ere. Iñaki Heras

-Ba hemen baduzue **erradikal** bat. Edorta Jimenez

4 familia bereko hitzetan, aldatu gabe dirauen zatia.

Hitzaren zatiak diren aurrizki, erro, **erradikal**, atzizki eta desinentziei buruzko oharpen batzuk. Isabel Arrigain

Antzinako latinak, beraz, oso garbi somatzen zituen hitzaren atalak (**erradikalak**, atzizkiak eta abar), eta atal horien konbinazioa. Isabel Arrigain

Garai hartan, **erradikalaren** atzetik *i* bat zetorrenean, *i*-rekin agertzen zen **erradikala**, *e*-rekin agertu ordez; gainerako kasu guztietan, aldiz, *e* agertzen zuen **erradikalak**. Isabel Arrigain

Analogiaren poderioz, jatorriz flexiokoa zen -a- elementua erantsi zaio **erradikalari**. Isabel Arrigain

Aipa dezagun bidenabar badagoela **erradikala** laburtzeko joera orokorra [...], batez ere **erradikala** bokalez amaitzen denean. Isabel Arrigain

Gramatikaren ikuspuntutik, paradigma sanskritoak **erradikalaren** nozioa zehazteko balio du, zeren elementu hori erabat erabakigarria eta finkoa den banako bati baitagokio. Isabel Arrigain

5 erro koadroa, erro kuboa edo kidekoa.

Lau eragiketak eta **erradikalak** erabiltzen zituztenak bakarrik: erro karratuak, kubikoak, eta abar ateratzea; eta formula horiek besterik ez. Jon Muñoz

Ekuazioak **erradikalen** bidez ebaztea (ekuazioen ebazpenak kalkulatzea, lau eragiketak eta erro karratuak, kubikoak, etab. soilik erabilita; beste inolako eragiketarik erabili gabe, alegia). Jon Muñoz

Bosgarren mailako ekuazioa **erradikalen** bidez ebatz zitekeen, bai ala ez? Jon Muñoz

Ebazpenak eraginkortasunez nola kalkulatu galdetu ondoren -**erradikalen** bidezko ebazpena-, lehenengo lau mailak ebazteko formulak asmatu zituzten. Jon Muñoz

6 kimikan, zenbait erreakziotan bere hartan jarraitzen duten atomo saturatuen multzoa.

Mikro-nutrienteak (proteinak, **erradikal** askeak, karbohidratoak, mineralak, aminoazidoak etc.). Edorta Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaketa erradikala (3); **aldaketa erradikalak** (4); **alderdi erradikala** (4); **alderdi erradikalak** (8); **alderdi erradikaleko** (7); **buruzagi xiita erradikalaren** (3); **ekuazioa erradikalen** (3); **ekuazioa erradikalen bidez** (3); **ekuazioak erradikalen** (3); **ekuazioak erradikalen bidez** (3); **erradikal bat** (5); **erradikal eta** (8); **erradikal gisa** (3); **erradikala da** (6); **erradikala eta** (4); **erradikala izan** (5); **erradikala izatea** (3); **erradikala zen** (3); **erradikalak eta** (3); **erradikalen bidez** (16); **erradikalen bidez ebatz** (5); **ezkerreko alderdi erradikalak** (4); **konpromiso erradikala** (6); **mailako ekuazioa erradikalen** (3); **nazionalismo erradikalak** (3); **oso erradikala** (3); **serbiako alderdi erradikalak** (3); **serbiako alderdi erradikaleko** (4); **xiita erradikalaren** (3)

---

erradikalismo *iz* erradikaltasuna.

Erradikalismo [...]: Biharko kontserbadurismoa gaurko arazoetan nahasia. Xabier Olarra

Egun batez, beharko dut ulertu, ulergarria baldin bada, nihaurekin buruz-buru plantaturik, zergatik ote, bortizkeria ene baitan higuin dudalarik **erradikalismoak** artetan erakartzen nauen. Piarres Aintziart

Edozein **erradikalismoren** jokoan sartzea ere gerta zitekeen, irenduaren estigma gainetik kentzeko. Joseba Zulaika

Anarkosindikalismotik sozialismo kristaura eta askapenaren teologiara; **erradikalismotik** humanismora eta atzera buelta. Iban Zaldua

Ez **erradikalismo** sinboliko eta azaleko bat, baizik eta **erradikalismo** praktiko bat, gizartea sakonki eraldatzen duen lanaren bidetik arituz. Berria - Ekonomia

Gauzak benetan okertzen hasi zirenean gertatu zen hori, oinarrizko ikasketen lekua izandako Arteen Fakultatean hain zuzen, bertan **erradikalismo** aristotelikoaren sua piztu eta, maisu ausartenak Averroes iruzkintzaile arabiarraren izenaz eta doktrinaz baliatzen hasi zirenean. Askoren artean

Goizean gertatutako atentatuak «**erradikalismo** islamistaren obra» izan zitezkeela eta ez ETAk burutukakoak. Berria - Mundua

Bere **erradikalismo** politikoari jarraiki, urtetan izandako bilakaera ideologikoa. Rafa Egiguren

Balio tradizionalen krisiak alde bateko zein besteko **erradikalismoak** probokatu zituen. Joxe Azurmendi

Bush jauna, esaterako, oso lotua dago integrismo kristauari, eta harremanak izan ditu islamiar **erradikalismoarekin** ere, hala nola Osama Bin Ladenekin. Berria - Kultura

---

erradikalizatu, erradikaliza, erradikalizatzen da/du *ad* izaera erradikala eman edo hartu.

Zuzenketek jatorrizko testua «**erradikalizatu**» nahi dutela salatu zuen atzo Leopoldo Barreda PPko eledunak. Berria - Euskal Herria

Spinozak, kritiko eta jarraitzaile Descartesekin, horren ideien ontologia **erradikalizatuz**, Jainkoaren ideia razionaltasunaren abiapuntu absolutu bihurtu du hastapen-hastapenean. Askoren artean

1968ko maiatzaren esperientzia egin berria zeukaten, eta **erradikalizatuta** zetozen bueltan etxera. Rafa Egiguren

Euskal identitate **erradikalizatu** baten eskaera zegoen ETAren hasieran. Joseba Zulaika

Plana nazionalista **erradikalizatuena** dela; independentziarantz doana eta euskal gizartearen erdia kanpoan uzten duena. Berria - Euskal Herria

---

erradikalizatzaile *izond* erradikalizatzen duena.

Gaur egun, islamismoaren baitan dinamika demokratizatzaileak eta dinamika **erradikalizatzaileak** bereizi behar dira», nabarmendu zuen Ramadanek. Berria - Mundua

---

erradikalizazio *iz* izaera erradikala ematea edo hartzea.

Politikoki, gobernuen **erradikalizazioa** zen neurri horien arriskua, luzamendu hutsera irits zitekeena. Koro Navarro

Nazionalisten ahalegin honek kritika gogorrak jaso ditu jada, ezkerrarako **erradikalizazioa** dela argudiatzen baita. Berria - Mundua

«EAJren **erradikalizazioan** urrats bat gehiago da», adierazi zuen Barriok. Berria - Euskal Herria

Inork ez daki PSOEk zein jarrera izango duen nazionalismoen **erradikalizazioaren** aurrean. Berria - Euskal Herria

---

erradikalki *adlag* errotik, era erradikalean.

"Beste" nagusiarenganako harremanak aldatzearen ondorio da hau, zeren harreman horiek moztean subjektu ekintzailearen izaera **erradikalki** aldatzen baita. Joseba Zulaika

ETA beste zerbait **erradikalki** diferentea zen, zerbait post-sabindarra, post-komunista, post-kristaua. Joseba Zulaika

Finkielkrauten mentalitate **erradikalki** dikotomistan honek esan nahi duena da: ala balio absolutu batzuk daude, ala dena berdin da (eta baliorik ez dago beraz). Joxe Azurmendi

Etika posmodernoaren aniztasunetik eta edozein jarreratara irekia dagoen ikuspegitik **erradikalki** urrun dago postura pascaldar hau. Joseba Zulaika

Imajinario zinez liberal bat elkartezina delako antolatu den gisako Estatu batekin, gutxien-gutxienez **erradikalki** federala ez den bitartean. Joxe Azurmendi

Sartrek zioen, **erradikalki** pentsatzea dela intelektualaren egitekoa. Berria - Kultura

erradikaltasun *iz* erradikala denaren nolakotasuna.

Nola neurtzen duzu **erradikaltasun** hori? Berria - Ekonomia

Ideala eta errealitatea elkarrekin uztartzea; ebanjelioaren **erradikaltasuna** eta giza mugen onarpena; bere bizimoldearen defentsa gartsua eta amore ematen jakitea. Askoren artean

Harrigarria ere egiten zaigu katoliko izateak Frantziskorengan duen **erradikaltasuna**, katoliko ez direnekiko intolerante bihurtzeraino. Askoren artean

Adimenduaren eta borondatearen arteko elkarrekikotasuna, subjektu bihurtutako egiaren aldeko **erradikaltasuna**, horrek egin zuen jatorrizko ETA hura hain iraultzailea. Joseba Zulaika

Jeltzaleen artean «**erradikaltasuna**» nagusi dela salatu zuen, «Batasunari eta ETAren inguruari babesa ematen diotelako». Berria - Euskal Herria

Konbentzimendu hori beharbada batzuek ahaztu badute ere [...], beste askok Euskal Herri berrian bide horri jarraitu dio harrezkero, **erradikaltasun** politikoa inolako absolutismo teorikorekin ezkondu gabe. Joxe Azurmendi

Dante izan baitzen hiri ideal bat planteatu zuena **erradikaltasun** osoz. Joseba Zulaika

Bere **erradikaltasunean**, ahulenaren alde jartzeko eta laguntzeko prest zegoela gogoratu zuen. Berria - Kultura

Beti daude haren izpiritua gaizki ulertu eta berritzailearen ideiak hitzez hitz jarraitzen dituztenak, ortodoxoa bere ortodoxian zena baino beren **erradikaltasunean** dogmatikoagoak direnak. Iñaki Heras

Barkamen benetakoak **erradikaltasun** miraritsua du, adierazezinekoa, legez kanpokoa, arrazoi guztitik harantzagokoa. Joseba Zulaika

---

erradio *(orobat **radio** g.er.)* **1** *iz* esferaren gainaldearen edo zirkunferentziaren edozein puntu eta erdigunea lotzen dituen zuzenkia.

Hiriak seiehun metroko **erradioko** zirkulu erdi baten itxura izanen du. Alberto Ladron Arana

Puntu orotatik zirkulu bat marraztu daiteke, zeinaren zentroa puntu hori baita, eta **erradioa**, berriz, edozein. Jon Muñoz

Erradio bezala gnomotik puntu horretara doan tartea hartuz, konpasarekin zirkulu bat egingo da, zentroa gnomoa dagoen lekuan jarriz. Santiago Iruretagoiena

Konpasa jarriz ezkerreko puntuan eta, **erradio** bezala, eskuinean duen puntuak markatzen dion neurria hartuz, beste zirkulu bat egingo da proszenioaren eskuineko aldea mozteraino. Santiago Iruretagoiena

C letra dagoen puntu horretatik lerro bat egingo da gnomoaren zentroraino, A letra dagoen punturaino, eta hori izango da eguzkiaren **erradio** ekinokziala. Santiago Iruretagoiena

2 irud/hed

Marteren beste ilargia, Deimos, Phobosen erdia da tamainaz eta bere orbitaren **erradioa** handiagoa da. Berria - Gaiak

Gorputza, hari gorputza esan bazekiokeen, okel zatietan barreiatua zegoen, berrogeita hamar pausoko **erradioan**. Jon Maia

Hiru kilometroko **erradioan** babes neurri zorrotzak jarri dituzte, eta hamar kilometrokoan, zaintzazkoak. Berria - Gaiak

Hala ere, aurrera egitera deliberatzen naiz, eta halako batean, panikoa: ez dut inor hurbilean, hogei metroren **erradioan**. Iñaki Iñurrieta

Antzeratsu gure behaketaren **erradioa** Oxus-Jaxartes arrotik hedatzen dugunean, mahayanaren sorlekua bere lehen agerpenean Indus arroan ikusten dugu. Iñaki Mendiguren

3 gurpiletan, erdigunea eta uztaia lotzen dituen izpietako bakoitza.

Aurreko gurpileko **erradioen** artean sugandila bat trabatu zitzaidan herri batean. Unai Elorriaga

4 besaurreko kanpoaldeko hezur luzea.

Besondoaren atzealdean dagoen beste muskulu luze bat, kubitu delako hezurrari (besaurrean **erradioaren** ondoan dagoen hezurrari) ukondoaren azpian lotzen zaiona. Irene Aldasoro

Bizeps muskulua **erradioari** lotzen zaion puntua ukondotik oso hurbil dago, eta ukondoak egiten du euste-puntuarena. Irene Aldasoro

Bizepsa eta **erradioa** lotzen dituen tendoia oso sendoa da. Irene Aldasoro

Liberty taldeko Carlos Barredo txirrindulariak ez du Flandesko Tourra korrituko, ezker besoko **erradioan** daukan pitzadurarengatik. Berria - Kirola

Ezkerreko ukondoko **erradio** hezurraren muturrean du Ruben Belokik haustura txiki bat, herenegun Oscar Lasaren hankarekin estropezu egin eta lurrera erorita egindakoa. Berria - Kirola

Hamahiru egun egin zituen besoa kakoan jarrita lehenengo, **erradio** hezurraren muturrean zeukan haustura ongi itsatsi arte. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erradio bezala (5)

---

erradioaktibitate *(**14** agerraldi, **2** liburu eta **11** artikulutan; ETCn **728** agerraldi; orobat **erradiaktibitate** **3** agerraldi, liburu **1** eta artikulu **1**ean; ETCn **76** agerraldi) iz* zenbait gaik atomoaz beheitiko zatikiak berez jaurtitzeko duten gaitasuna.

Pilula horiekin tiroideak bete eta **erradioaktibitatea** gorputzean sartzea saihesten da. Berria - Euskal Herria

Erradioaktibitateak elbarri utzi zituen asko eta minbizi kasuak hamar aldiz handitu ziren denbora gutxian. Berria - Gaiak

Erradioaktibitateak eragin odoleko kutsadura zikinaren kausaz, minbiziaren antzeko eritasunak xurgatzen zizkion hezurrak. Itxaro Borda

Bada, gauza bertsua duk hau; esponentziala nonahi aurkitzen diagu, izadian nahiz gizartean: landare baten hazialdian, izurri baten hedaduran, biztanle-multzo baten, **erradioaktibitatearen**... eta abarren bilakaeran. Jon Muñoz

Agindu-gelan larrialdi deia beranduegi eman izanak seigarren erreaktorearen eraikineko airea **erradioaktibitatez** kutsatzea eragin du. Berria - Gaiak

Ikerketak ez du aipatzen AEBek erabilitako uranio pobretua, zeinak **erradioaktibitate** izugarria duen. Berria - Mundua

Irradiazioa **erradioaktibitate** iturri batetik gertuegi zaudenean gertatzen da. Berria - Gaiak

2002ko otsailaren 9a: Onagawako zentral nuklearrean (Japonia) **erradioaktibitate** dosi txikiekin kutsatu ziren bi langile. Berria - Gaiak

NATOren txosten batek ere uranio pobretua ez dela kaltegarria ondorioztatu zuen, «**erradioaktibitate** maila txikia» dela argudiatuz. Berria - Mundua

---

erradioaktibo *(**75** agerraldi, **4** liburu eta **34** artikulutan; ETCn **1.359** agerraldi; orobat **erradiaktibo** **19** agerraldi, **4** liburu eta **12** artikulutan; ETCn **537** agerraldi) izond* atomoaz beheitiko zatikiak berez jaurtitzeko duten gaitasuna duena.

Zentral nuklear batek 125 kilo uranio **erradioaktibo** sortzen ditu egunean. Berria - Mundua

Estatu Batuetako hegoaldetik irten ziren ontziok duela bi aste, barruan 140 kilo plutonio **erradioaktiborekin**. Berria - Gaiak

Ordubetean, gai **erradioaktiboak** erradiazioa igortzeko %50eko probabilitatea du. Fernando Morillo

Nuclenor enpresari isuna jarri zioten, AEBetatik Garoñara material **erradioaktiboaren** garraioan irregulartasunak antzemateagatik. Berria - Harian

Lurrun horrek elementu **erradioaktiborik** ez zuela esan zuten Japoniako agintariek. Berria - Gaiak

Kutsadura, berriz, partikula **erradioaktiboak** zure gorputzean sartzen direnean gertatzen da. Berria - Gaiak

Vianaren lanak ohartarazi baitzuen esposizio **erradioaktiboa** gerta zitekeela Trilloko zentrala abian jartzean. Berria - Euskal Herria

Justifikatzen denean fenomeno batzuen azalpenik hoberena isotopo **erradioaktiboen** fisika dela, atomoen eta partikula azpiatomikoen arteko erlazio kausalak ere ondorioz justifikatuta daude teoria horretan ere. Askoren artean

Suediako Frosmarken partikula **erradioaktiboak** hauteman zituzten eta Sobiet Batasunetik zetozela ondorioztatu zuten. Berria - Harian

Afganistango gerran ere uranio pobretua erabili izanaren zantzuak daude eta uste da 1.000 tona oxido **erradioaktibo** dagoela herrialdean. Berria - Mundua

Lantegian isuri **erradioaktiboak** igarri ostean. Berria - Ekonomia

Okupazio indarrek 2 milioi kilo uranio hauts **erradioaktibo** utzi dituzte Iraken. Berria - Mundua

«Kutsadura **erradioaktibo** arina» gertatu zen Garoñako zentral nuklearrean. Berria - Harian

Bigarren erreaktorearen lurrun sorgailuko hodi bat apurtu zen orduan, eta hozteko sistemako 55 tona ur **erradioaktibo** filtratu ziren hodietako hormetatik. Berria - Gaiak

Yakartako 12 erreka baino gehiago zabor **erradioaktiboz** kutsatuta daude. Berria - Gaiak

Hondakin **erradioaktiboen** auzia. Berria - Mundua

Garoñako txatarra **erradioaktiboa** atzeman dute Sestaon. Berria - Euskal Herria

Hodei **erradioaktiboak** partikulak zabaldu zituen Europan barrena. Berria - Gaiak

Laino **erradioaktiboak** Minsk aldera jo zuenean, ez zen ihes egiterik izan: bost lagunetarik bat bertan hil zen, erradiazioaren ondorioz. Berria - Kultura

NATOko soldaduek **erradioaktiboak** ziren 10.800 jaurtigai bota zituzten Serbian eta Bosnian. Berria - Mundua

Edukiontzi **erradioaktiboak** zeramatzan kamioi batek istripua izan zuen, eta edukiontziak erori egin ziren. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erradioaktiboa atzeman (3); **gai erradioaktiboak** (6); **hondakin erradioaktiboak** (4); **hondakin erradioaktiboen** (3); **material erradioaktiboa** (6); **ur erradioaktiboak** (4)

---

erradiofrekuentzia *iz* irrati bidezko komunikazioetan erabiltzen diren uhin elektromagnetikoen frekuentzia.

Erradiofrekuentzia uhinek ez zituzten hiru zentimetro baino handiagoko tumoreak ezereztu, ez behintzat oso-osorik. Berria - Gaiak

Erradiofrekuentzia teknika baten bidez, organoa mantendu eta tumore gaiztoa ezereztea dagoela diote zientzialariek. Berria - Gaiak

Hiru zentimetro baino txikiagoko tumoreak zituzten gaixoek nahikoa izan zuten **erradiofrekuentzia**-terapia saio bat minbizia ezerezteko. Berria - Gaiak

---

erradiografia *iz* X izpien bidez lorturiko argazkia.

Azkenean, **erradiografia** batean, Rouengo espezialistak polipo bat aurkitu zion urdailean, berehala kendu beharrekoa. Joseba Urteaga

Atzoko etapan izandako erorketaren ostean Charleroiko ospitalean ingresatu zuten txirrindulari italiarra, bertan hainbat **erradiografia** egingo dizkiote haustura duen edo ez ziurtatzako. Berria - Kirola

Auzi-medikuak epaileari jakinarazi zion Otegi Elgoibartik Mendaroko ospitalera eramango zutela **erradiografiak** ateratzeko, biriketan «soinuak» entzun zizkiolako. Berria - Euskal Herria

Skinnerren sabelaldearen **erradiografian**, 17 zentimetro luzeko artaziak ageri dira. Berria - Gaiak

Erradiografian ez zen ezer agertu. Fernando Rey

Ageriko zauririk ez badago ere, gutxienez hamabost egun igaro behar dira etzanik, eta guztiaren **erradiografiak** egin, zerbait badagoen ikusteko. Juan Kruz Igerabide

Eztarriaren **erradiografia** egin didate oraintxe bertan. Lopez de Arana

Lehenik, mina asmatu zuen Txominek; hurrenik, medikutara joan behar zuela; azkenik, **erradiografia** eskuan zuela, esan zion amari: [...]. Joan Mari Irigoien

Bukatu zuenean, hatzak xurgatu eta eskuzapi batez garbitu zituen eskuak, eskuzapi zurian esku bien **erradiografia** abstraktu bat utziz, Izara Santuaren eskuen arrastoen antzekoa zena. Harkaitz Cano

Dutxaren ostean banan-banan **erradiografia** egingo ei ziguten, "beren beregi horretarako egindako aparatu batekin". Urtzi Urrutikoetxea

Galtza beltz estuak zeramatzan eta **erradiografia** batean bezala bizkarreko saihetsak bistaratzen zizkion elastikoa. Joxean Agirre

Kardiogramak igortzeko ez ezik, **erradiografiak** bidaltzeko ere erabili nahi dituzte teknologia berriak, Indian tuberkulosia duten gaixo asko dagoelako. Berria - Harian

Shank buru izan duen taldeak egindako lanaren nondik norakoak ezagutu ahalko ditu ikusleak erakusketan, olio bien eta X izpien bidez lortutako **erradiografiaren** aldamenean, kontserbatzaileek egindako lan prozesua azaltzen duten oholak baitaute. Berria - Kultura

Erradiografiak hobeto ikusten dira beruna duten margoekin. Berria - Kultura

2 irud/hed

Eta oraingoan bai, oraingoan Barriek bere izaeraren **erradiografia** paregabea egin zuen, psikologo eta psikoanalista freudiarren gozamenerako. Julen Gabiria

Sendi baten **erradiografia** egiten du filmak. Berria - Kultura

Euskal Herriari buruzko «**erradiografia** eguneratua eta zorrotza» eskaintzea da helburua, baina ingurua ahaztu gabe. Berria - Euskal Herria

Hilketaren kronika baino hiltzaileen erretratu psikologiko miragarria, gizartearen **erradiografia** kupidagabea eta heriotza zigorraren kontrako alegato zorrotza da, oraindik ere, Truman Capote-ren *Odol hotzean*, "fikziorik gabeko eleberria". Iñigo Aranbarri

Liburutegi pertsonal oro bizitza baten egitasmoa eta ispilua da: agerian daude jabearen ametsak eta desioak; haren ahulezien **erradiografia** egiten du, haren hezibideak dauzkan hutsune izugarriak salatzen ditu. Anjel Lertxundi

Txapelketaren **erradiografia**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erradiografia bat (5); **erradiografia batean** (3); **erradiografia egin** (7); **erradiografia egiten** (3); **erradiografia egiten du** (3); **erradiografiak egiten** (3); **eta erradiografia** (3)

---

erradiografiatu, erradiografia(tu), erradiografiatzen du *ad* erradiografia egin.

Edozer ikus dezakezu eta **erradiografiatu**. Harkaitz Cano

---

erradiologia *iz* medikuntzaren arloa, erradiazioen eta gai erradioaktiboen erabilera aztertzen duena eritasunen diagnostiko eta tratamenduan.

Pediatrian, ginekologian, anestesiologian nahiz **erradiologian** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan dagoen espezialista falta «luze baino lehen» konponduko dela. Berria - Euskal Herria

Erradiologiaren lehenengo garaietan, XX. mendearen hasieran, gauza bitxi bat nabarmendu zen: erradiologoek nekez jaten zituzten arrautza egosiak. Irene Aldasoro

Arantzazu Ospitaleko **Erradiologia** Zerbitzuko medikuak. Berria - Euskal Herria

Milaka izan dira klinika pribatuetan egin diren ebakuntzak edo **erradiologia** probak. Berria - Euskal Herria

---

erradiologiko *izond* erradiologiarena, erradiologiari dagokiona.

Behaketa **erradiologikoak** errepikatu beharrik ez izateko. Berria - Euskal Herria

EAEko Herrizaingo Sailak larrialdi **erradiologikoetarako** zerbitzuak antolatu ditu hainbat herritan. Berria - Euskal Herria

Larritasun **erradiologikoen** protokoloa. Berria - Euskal Herria

erradiologo *iz* erradiologian espezialista den medikua.

Bilbao doktoreak, **erradiologoak**, zertxobait luzatu izan ez balu, bizi-itxaropen hura aspaldi agortua zegokeela pentsatzen zuen. Imanol Zurutuza

Sonogramak **erradiologoarekin** aztertu -kistearen murriztea berretsi zioten-, eta gero, itzuli, eta gaixoa lasaitu zuen. Xabier Olarra

Erradiologiaren lehenengo garaietan, XX. mendearen hasieran, gauza bitxi bat nabarmendu zen: **erradiologoek** nekez jaten zituzten arrautza egosiak. Irene Aldasoro

Lehenbiziko **erradiologoek**, esate baterako, arrastorik ere ez zuten X izpiek minbizirik eragin zezaketenik. Juan Garzia

---

erradioteleskopio *iz* kosmosean sorturiko uhin erradioelektrikoen hargailua.

Astrofisikariek pulsar pare bat atzeman zuten joan zen urtean espazioan, Australiako Parkes **erradioteleskopioari** esker. Berria - Gaiak

---

erradioterapia **1** *iz* eritasunak X izpien edo gai erradioaktiboen bidez tratatzea.

Izan ere, kirurgia, hormonoterapia edo **erradioterapia** bidez, kasuen %90 sendatu egiten dira. Berria - Gaiak

Ileordea lehenbailehen enkarga zezala, esan zion Bilbao doktoreak gaixoari, gauza jakina baita ilea erori egiten dela **erradioterapiaren** ondorioz. Imanol Zurutuza

Hasierako proiektuaren arabera, **erradioterapiarako** gunea ez ezik, kontsultarako guneak, erredіologia saila, ikerketarako arloa, minbizia garaiz atzemateko gunea, arreta psikologikorako saila eta eguneko ospitalea ere izan behar zituen zentro onkologikoak. Berria - Euskal Herria

Erradioterapia eman bazioten ere, alferrik izan zen: sei hilabeteren buruan ehortzi zuten, bere jaioterriko kanposantuan, Esteiron. Iban Zaldua

2 (hitz elkartuetan ehen osagai gisa)

Zentroaren ordez, egungo **erradioterapia** zerbitzua hobetzeko obrak eginen ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ospitalean. Berria - Euskal Herria

Geroztik **erradioterapia** eta kimioterapia tratamenduak hartu behar izan ditut. Imanol Zurutuza

Bost urtez kimioterapia eta **erradioterapia** saioak jaso zituen emakumeak, harik eta minbizia gainditu zuen arte. Berria - Gaiak

Erradioterapia saioetara bidaliko duela esan dio Las Heras doktoreak gaixoari, eta ez zaio gozoa gertatu hori entzutea. Imanol Zurutuza

Erradioterapia sailera lehenengoz joan zirenean, maskara egiten hasi aurretik, Bilbao doktoreak hartu zituen, tratamenduaren berri azaltzeko. Imanol Zurutuza

---

errafaga *iz* bolada.

Errafaga batek apurtu dizkio hagin guztiak. Joseba Sarrionandia

---

errafinosa *iz* glukosa, fruktosa eta galaktosaz osaturiko gluzidoa.

Bolatxoa azukre natural batez **errafinosa** eta aminoazido batez egiten da. Berria - Gaiak

---

erragai ik **erregai**.

---

errai *(**471** agerraldi, **136** liburu eta **44** artikulutan; ETCn **2.952** agerraldi)* **1** *iz pl* bularraldeko eta eskuarki sabelaldeko barne organoak. ik **barruki**[2].

"Erraiak" izena bai adiera zabalean eta bai berezian erabiltzen delako, 'hesteak' esangurarekin eta bai 'barruko edozein organo' adierazteko ere, 'bihotza' barne. Xabier Kintana

Zu ere bere lekutik ateratzen hasten bazara -urdaila han, gibela hemen, **erraiak** hor- bilduma hori ez da gehiago organismo bat. Josu Zabaleta

Zaldi bat ikusi zuen hilda, ipurgaina txikiturik eta **erraiak** barreiaturik. Jose Morales

Ni haren hiletara joango naiz, bidean tximista batek jo eta **erraiak** erretzen ez badizkit behintzat. Jon Maia

Esku biak sabelari helduta, erretzen sentitzen zituzten barrenak, likidoaren suak janik **erraiak**. Josu Zabaleta

Erraietan dakarren birus zaharren bat ote du? Patziku Perurena

Nik ez dakit nola agertu zineten nire **erraietan**; ez nizuen nik arnasa eman, ez bizia ere, eta zuetako bakoitzaren gorputza ez nuen nik eratu. Elizen arteko biblia

Lasaitasun harrigarriak bete zituen nire **erraiak**. Txillardegi

Halakoxea zen bere **erraiak** bihurritzen zituen gosea! Pako Aristi

Janariaren usainak **erraiak** bihurriarazten dizkio, basatiki, listuak gainez egiten dio hortzetan. Jon Alonso

Gogoratu hutsarekin **erraiak** nahasten zaizkit. Josu Zabaleta

Ikertzaile ospetsu askok ez dute arima **erraien** artean sailkatzen, baina Gunsaulus doktorea, begi erneko autoritate sonatua, konbentzituta dago barea deritzan organo misteriotsua dela, hain zuzen ere, gure parte garrantzitsu hori. Xabier Olarra

Erbiren bat harrapatu zuten eta beste hiru kideek erbiaren **erraiak** jan zituzten haragia suediarrari eskaintzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Arrainen **erraietan** geroa irakur zitekeela uste baitzuten. Patxi Ezkiaga

Atalak ebaki, afarirako prestatu eta jan egin zituen, lehoi basati batek bezala; ez zuen utzi ez haragirik, ez **errairik**, ez hezurrik. Juan Kruz Igerabide

Buruz behera amildurik, erditik lehertu zen eta haren **erraiak** lurrean zabaldu ziren. Elizen arteko biblia

Sabelean, sugeak, inoiz ez bezala inarrosi zizkidan **erraiak**. Lander Garro

Batzuetan ikaragarria da, egiazko zauri berdaderoa, ez dakit non, bihotzean, gibelean edo **erraietan**. Fernando Rey

Thierryk goiti egiteko tirria nabaritu zuen **erraietan**. Itxaro Borda

Ilobak ezpata hartu eta **erraietan** sartu zion osabari. Askoren artean

Zein opari handia ama izatea, zure **erraietan** hazi txiki bat eraman ahal izatea, gero, apurka-apurka, loratuko dena eta izaki babesgabe bihurturik argia ikusiko duena. Karlos Linazasoro

Ondoren, Jaunak **erraietako** gaixotasun sendaezinaz jo zuen Joram. Elizen arteko biblia

Erraietako infekzioa izan zuela uste dute. Gotzon Garate

Erraietako ondoeza oka igotzen zait eztarrira, suzko erreka itsu bat baneuka bezala barruan, nondik edo handik bidea egin nahirik). Anjel Lertxundi

Emakumeen erdimin normalen estuasunez aparte **erraietako** minez baitzegoen. Askoren artean

Mutilaren atzamarra astinka zebilkidan barruan, neuretzat ere ezezagunak ziren **erraietako** zirrikituak deskubrituz. Juan Martin Elexpuru

Nire **erraietatik** ateratako semea ni hil nahian badabil, [...]. Elizen arteko biblia

Faroen argi-konoan ikusgai: landare zurrun-geldiak eta lur-azaleko erro-multzo nahaspilatuak, **erraien** gisa distiratzen ari. Joxe Austin Arrieta

Jainkoa Rakelez oroitu eta, honen eskaria adituz, **erraiak** ernearazi zizkion. Elizen arteko biblia

Alai daukat bihotza, pozez jauzika **erraiak**, atsedenean lasai gorputza. Elizen arteko biblia

Azkenik, plazerrez asnasestuka, isuri bizigai epela botatzen dio **erraietan**. Karlos Zabala

Hurra amaren **erraien** ahurrean mamitzen doan haurra da: ez da kasualitatea hurrak bihotz ttiki baten tankera badu. Pello Zabala

Beraz, arima osoak hazi txiki-txikiz egina behar du, zain, **errai** eta kirioetan zehar bilbatua. Xabier Amuriza

Orobat ditu gizakiak ere lau lohadar, bost **errai**, bederatzi zulo eta hirurehun eta hirurogei artikulazio. Joxerra Garzia

Horregatik hauetariko edozein animaliak ere hezurrak, odola, zainak, beroa, humorea, **erraiak**, nerbioak dauzka. Xabier Amuriza

2 (singularrean)

Gauza bat da bihotza, eta oso bestelakoa **errai** kardiakoa. Koldo Izagirre

Neskatxak eskua hartu zidan; nire barruan, bihotza beste **errairik** ez. Joxean Sagaztizabal

Gizakiaren sabeleko **errairik** haundiena eta ilunena baita gibela. Patziku Perurena

Xehetasunik adierazgarriena zen, emakumearen edertasun malenkoniatsuaz aparte, granadari azal zati bat falta zitzaiola, eta, beraz, barruko ale gorrixkak agerian zituenez, **errai** odoltsu bat zirudiela. Ramon Saizarbitoria

3 irud/hed barne-barneko aldeak.

-Erraietaraino sartuko dizut nire buztantzarra, urdanga hori! Jon Arretxe

Sortetxearen deiak **erraiak** inarrosi zizkidan. Daniel Landart

Nik ez nuen bide hartatik jarraitu nahi, ezen, izen hura entzun hutsarekin **erraiak** sutan jartzen zitzaizkidan. Juan Kruz Igerabide

Biak ozpindurik, **erraiak** jaten, baina hitzik egin gabe. Anjel Lertxundi

Gaur, ordea, suge beltz bat igartzen dut **erraietan**. Joan Mari Irigoien

Izuak atximurkada egin zion Norari **erraietan**, eta arnasarik gabe utzi zizkion birikak. Anjel Lertxundi

Mireiak amorrua sentitu zuen **erraietan**. Fernando Morillo

Izuaren zulo beltzak min ematen zion **erraietan**. Unai Iturriaga

Garazik berak ere, Zuberoatik gaztetan joana izan arren, **erraietan** zeraman Gotaineren oroitzapena. Txillardegi

Heavya, metala eta power metala **erraietan** daramate Flyin' Freak talde berriko musikari beteranoek. Berria - Kultura

Sentitzen nuèn amorrua **erraietatik** atera zitzaidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Beste hainbatetan bezala, apoarmatuaren koraza jantzi eta **erraietatik** mintzatu zen Marta. Harkaitz Cano

Berbak tarteka bihotzetik, tarteka **erraietatik** atera zaizkio. Berria - Euskal Herria

"Lagun bat gutiago", "lagun bat gutiago!", horra zer zioen **erraietatik** jalgitzen zitzaidan ahots lodi ilun batek. Daniel Landart

Eta nola sentitu nuen orduan neure barrenean hustasun izugarri hura, **erraietarik** zerbait ebatsi balidate bezala...! Joan Mari Irigoien

Hiriko puta-etxe argiztatu batera jo zuten, **erraiak** huts asmoz, geltoki herdoilduaren auzoan. Itxaro Borda

Katuek animalia hilak jateko ohitura dute, eta haien **erraiak** ere jaten dituzte maiz, birikak eta giltzurrinak. Berria - Gaiak

Bi nazio dituzu sabelean, bi herri aterako zaizkizu **erraietatik**: bata besteari nagusituko zaio, zaharrena gazteenaren morroi izango da. Elizen arteko biblia

Bere maletarekin etxean sartu aurretik, orro sakon bat entzun zuen urrun-urrun, sendoa eta luzea, bere oinpeko lurraren **erraietatik** aterako bailitzan, eta handik gutxira lurra mugitzen hasi zen eta etxeak erortzen. Pello Salaburu

Gogorra izan behar du gero Vesubioren magalean bizitzea, jakinik lurraren **erraiak** noiznahi-den kolera daitezkeela eta lehert. Joan Mari Irigoien

Itsasbeherak agerian utziak zituen ibaiaren **erraiak**, basatza gris ilun ura. Koldo Izagirre

Pirinioetako **erraietatik** isurtzen diren ur termal gozoetan bainatu ahal izan ginen, kanpoaldean elurra gogotik ari zuela. Patxi Zubizarreta

Gain-azalean ogia ematen duen lurrak sugarretan ditu bere **erraiak**. Elizen arteko biblia

Bat-batean, gogor kolpatu ninduen zoruak, infernuaren **erraietatik** sorturiko ukabil erraldoi baten gisan, erruki izpirik gabe. Juan Kruz Igerabide

New Yorkeko **erraiak** agerian ipintzen zizkidan Tom Wolfe-ren *Bonfire of the Vanities* irakurtzen ari nintzen. Gotzon Garate

Beren auto ponposoak toki debekatuetan uztera tematzen dira, eta orduan abiarazten Udalak bere **erraietan** ezkutatzen duen makina zehatzailea. Aingeru Epaltza

Makinak bere **erraietan** altxatzen izan behar zuen dokumentu kopurua kontuan hartuta, lantokiko nire aparatuak egun osorako lana izanen zuen. Aingeru Epaltza

Zurezko habe koloreztatuan itsatsi du Schoenbergerek goizaburu zehargia horrek barnean ageri dituela telebixta zahar baten **erraiak**. Herria

Hurrengo egunetan buru-belarri murgildu nintzen xake liburuaren **erraietan**. Alberto Ladron Arana

Pedroren iduri haiek berehala egin zuten ahanzturaren **erraietarat**, joan zitzaizkidan gogotik eta ezabatu memoriatik. Joan Mari Irigoien

Beldurra sartu zitzaion **erraietaraino**, sekulakoa. Hasier Etxeberria

Egiazko jainkozaletasunak, Apostoluak dioenez guztirako balio duenak, Frantziskoren bihotza bete zuen eta haren **erraietaraino** sartu zen. Askoren artean

Entrenatzaileak bere nortasuna **erraietaraino** barneratu die jokalariei. Berria - Kirola

Baina neurri ororen gainetik, **erraietarainoko** amodio osoz, bere anaiak maite zituen. Askoren artean

Ez duk entzuten nola hitz egiten dian? Ez duk seme baten **errairik**? Josu Zabaleta

-Errairik gabeko umea!, amaren **erraiak** hankapean erabiltzeko gauza haizena! -esan zuen handikiro. Inazio Mujika Iraola

Inork ez ditu inoiz irekiko, ezin hobeto ezkutatuak daude disko gogorraren **erraien** artean. Karlos Zabala

-Putakume galanta zara, Iturbide -jarraitu zuen Arrietak itobeharrean-, beti izan zara **errai** gutxiko tipo bat, baina ez nuen uste horrenbeste izatera iritsiko zinenik. Migel Angel Mintegi

Bere **erraiak** galtzen ari den Frantzia baten bat-bateko ikuspegia dut, ikuspegi bizia. Josu Zabaleta

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Gure egunetako gizaki hautsiaren **errai** ezkutuenak. Iñaki Segurola

Jelatinatsu eta berak ziren, **errai** txikituen biguntasun higuingarri hori zuten. Juan Garzia

Golde makurraren mutur astuna ez zen oraindik ausartu, gure lehendabiziko amaren **errai** maitekorretan, irekita, sartzen. Patxi Ezkiaga

Horrelako **errai** errukitsuak zituen behartsuenganako, horrelako sentimenduekin jarraitzen zien Kristo pobrearen oinatzei. Askoren artean

Horregatik, zure santutasunaren **errai** errukitsuetara jotzen dut, hemen dagoen Ostiako jauna zeure ordezkotzat eman diezaguzun. Askoren artean

Haren eguneroko kamiseta tirantedunen baten barneko **errai** menditsuetara. Aingeru Epaltza

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gu hara iristen ari ginen uneantxe ari zen halako txoritzar beltz-ubel saldo oso bat **errai**-multzo bati tiraka, hara eta hona, beren moko odoleztatuei sarrats-litsak zerizkiela. Joxe Austin Arrieta

Emakumeari sabela handitzen hasi zitzaionean gurasoak harritu egin ziren lehenik, gorritu hurrena, eta lehertu azkenik, eta lehertu ere halako danbada bortitzez lehertu ziren, non gonbidatuen arropa berriak **errai** zukuekin zikindu baitziren. Aritz Gorrotxategi

Zeruko ebakuntza-gelaren batetik eroritako gibel odoldua, **errai** zati bat, San Pedroren heste-sobrea. Joxean Agirre

Harridurazko begiak zabaltzen zituen, besoetan hartu zuen **errai** saltzaile gizen baten sorbaldaren kontra estutzean. Karlos Zabala

Haren hitzen bidez dardaratu ziren mendiak, eta handiki haiek, **errai**-barnenetik ozenki hasperenka, negarretan garbitu zuten beren barrua. Askoren artean

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta laster entzunen genuela sabel-**erraiak** inarrosten eta suntsitzen dituen kantu-deiadarra: Zatozkiote. Daniel Landart

Baina hau bere asmotik ezin zuela aldendu ikusiz, ama-**erraiak** hunkitu zitzaizkion eta, kateak puskaturik, libre joaten utzi zion. Askoren artean

Oso eskuliburu ona da etorkizuna igartzeko oinarrizko metodo guztiak ikasteko: kiromantzia, kristalezko bolak, hegazti-**erraiak**... Iñaki Mendiguren

Geziak astindu ditu, idoloei kontsulta egin eta abere-**erraiak** aztertu. Elizen arteko biblia

Horregatik, haren laguntzaile bihurtu zen aurrerantzean; babesa eta adorea eman zion, eta maitasun-**erraiz** besarkatu zuen. Askoren artean

· Mundua -lur eta itsaso guztiak- esploratu eta deskubritu ditugunean, geure baitara bildu eta bihotz-**erraietako** eremu psikologikoak ere ezagutu ditugunean, konturatu egin gara edertasunak ez duela eremu jakinik. Anjel Lertxundi

Arraina garbitzera, gibel-**erraiak** uretan pasatzera, haur zurien sehaskari eragitera, dendak erraztatzera, txerri-azala karrakatzera. Anton Garikano

7 *errai-errai* (toki atzizkiekin)

Errai-erraietan sartu diot tiro bat. Koro Navarro

Nola inarrosi ninduten hitz haiek **errai-erraietan**, eta nola ohartu nintzen bat-batean aita jesuita enekin jokatzen ari zen joko ezin makurragoaz...! Joan Mari Irigoien

Gurasoen **errai-erraietako** zatiak dira seme-alabak. Patxi Ezkiaga

1970 inguran gabilz, frankismoaren **errai-erraietan** oraindino. Xabier Amuriza

Nahimenak, ordea, sarri ezin izaten ditu kontrolatu **errai-erraietatik** sorturiko bulkoak, larruazalaren azken muturreraino hedatzen dira eta. Juan Kruz Igerabide

Odola sutan jartzen zitzaidala, erran nion amari, koleran sarturik eta **errai-erraietarik**: [...]. Joan Mari Irigoien

Denbora hura ere iragana zen eta etxetik ihes egin berria nintzen... eta iraganarekin hausteko gogo bizi hura nuen, **errai-erraietaraino** sartua, hura nola bideratu behar nuen ez banekien ere. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batek erraiak (4); **bere erraiak** (3); **bere erraietan** (5); **ene erraietan** (5); **errai erraietan** (4); **errai erraietan** (4); **errai eta** (3); **errai guztiak** (5); **errai kardiakoa** (4); **erraiak bihurritzen** (4); **erraiak ere** (4); **erraiak erretzen** (4); **erraiak eta** (4); **erraiak ez** (4); **erraiak jaten** (3); **erraiak kiskaltzen** (3); **erraietan eta** (3); **erraietan sartu** (5); **erraietan sartu eta** (3); **erraietaraino barneratu** (3); **erraietatik atera** (5); **erraietatik sorturiko** (3); **erraietatik sortzen** (3); **eta erraiak** (12); **eta erraietan** (4); **lurraren erraiak** (5); **lurraren erraietan** (6); **lurraren erraietatik** (7); **nire erraiak** (5); **nire erraietan** (5); **sentitu zuen erraietan** (3); **zion erraietan** (3); **zuen erraietan** (5); **zure erraietan** (3)

---

errail 1 *iz* trenbidea osatzen duten burdinazko edo altzairuzko bi haga paralelo, luze eta meheetako bakoitza.

Lehergailua trenbidearen **errail** baten azpian zegoen eta AHTko langile batek ikusi zuen. Berria - Mundua

Heldu ziren Mobileko aldirietara, non beltzak ari ziren Unionarentzat **errailak** jartzen. Anton Garikano

Horrek ekarriko luke gehienezko abiadura zaintzea, garraio publikoarentzako **errailak** egitea eta sarbideak egin nahiz hobetzea. Berria - Euskal Herria

Bihar, trenak are urrunago joango dira, nekearen nekez intzirika dabiltzan **errailen** gainean. Eskarne Mujika

Zamatren luze bat pasatu zen, ziztu bizian zihoan eta ardatzek, **errailen** junturen artetik pasatzean, trikitraka neurtu eta sakona egiten zuten. Fernando Rey

Kanpoaldera ematen duen bagoia dun hau, azken bagoia, eta han, banan-banan hasten dun maleta guztiak bagoitik **errailen** ertzetara botatzen. Harkaitz Cano

Errepide probintzialaren alboan, hiriko gizon ilara luze batzuk ari ziren harria jartzen, trabeseko habeak lurrean ezartzen eta **errailak** lotzen. Koldo Biguri

Neskak, ezinbestean, begirada desbideratu eta trenbideetako **erraileten** dir-dir egiten zuen euri-zaparradan finkatu zuen. Lopez de Arana

Gurpilek **erraileten** gora egiten zuten. Koro Navarro

Nire bagoia **errailez** aldatzen ari ziren, eta ia-ia ohetik erori nintzen. Koro Navarro

Agian tupusteko bat, **erraileten** irtetea, inoiz argituko ez zitzaigun nahaste bat. Karlos Linazasoro

Olivettitarrak guk hurbiletik ikusten genituen lehenbiziko industria-gizonak ziren, eta niri zirrara sortzen zidan kalean ikusten nituen iragarki haiek, treneko **errailen** gainean lasterka doan idazmakina bat irudikatzen zuten iragarki haiek. Fernando Rey

Bordelera itzultzeak ez ninduen xoratzen baina **erraileten** nintzen. Piarres Aintziart

2 irud/hed

Errezel eta pertsianentzako **errailak** egiten ditu Newellek Gasteizen. Berria - Ekonomia

Burdinazko **errail** bakarraren gainetik irristatuz baztertzen ziren ateak; elkarren ondoren, eskuinalderantz, ezkerraldean orduan tarte edo pasabide bat eskaintzen zutelarik. Txillardegi

Bagoiak lasterka zihoazen, **errail** estuetan jauzi txikiak eginez. Jose Morales

Sotoan hondoratzen ziren haien atzetik, eskailera mailen gainean jarritako **errailei** jarraituz, zumezko bagoien gurpil txikien txilioa, zerra txistua zirudiena, entzuten zutela. Karlos Zabala

Egun hartan, liburutegira sartu zenean, eskailera **erraileten** zintzilik aurkitu zuen Gabinek. Iñaki Iñurrieta

Sabaia hain altua izaki, hormak behetik goraino estaltzen zituzten liburuen azken ilaretara iristeko, **errail** hartatik zintzilikatzen zen eskailera, eta handik erabiltzen batera eta bestera, libururik goikoena ere eskumenean izateko moduan. Iñaki Iñurrieta

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Errail herdoilduek txoko sekretu ugari gordetzen zituzten, zurrumurruz beteriko amets urdinduak, denborak zimeldutako ahotsak eta musuak. Fernando Morillo

Aldian behin **errail** bustiei txinparta more bat zerien. Lopez de Arana

Denbora batez, XIX. mendean oro har, **errail** paraleloetan joan ziren trena eta ekonomia, edo trena eta gizartea. Edorta Jimenez

4 trenbidea.

Hurrena soilune batean gelditu ginen, eta huraxe izaki Palenque: geltokitxo galdu bat, inor ez igo ez jaitsi ez zena, gu izan ezik, etxola bat trenbidearen ondoan, seinale bat, eta kito, **errail** bakarra beti ere, bide-adarrik batere gabea (oker oroitzen ez banaiz). Joxe Austin Arrieta

5 autobide erreia.

Pirinioetako autobidearen eraikitze lanak direla eta, Iruñerako noranzkoan **errail** bat itxita dagoela gogorarazi du Nafarroako Gobernuak. Berria - Euskal Herria

Kamioi batek eta auto batek izan zuten istripua, 18: 30 inguruan, eta zauriturik izan ez bazen ere, Ertzaintzak **errail** bat moztu zuen. Berria - Harian

Udaletxean erakusgai jarri zituzten planoak aztertu zituenean, jakin zuen sei **erraileko** autobide hura bere landetxearen erdi-erditik igarotzen zela. Eskarne Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errail bat (4); **errailak egiten** (3); **errailen gainean** (6)

---

erraile *iz* esalea.

Alegiazko egia" horren **erraileari** bi hitz-. Herria

Eta konbertsazione haietan hura zen kasik beti **erraile** eta irakasle, eta ni entzule eta ikasle. Joan Mari Irigoien

Hor lerrokatuko dira antzerkilari eta testu **erraile** apartak, Brassens kantari eta hitz jori sortzailea izanen dutelarik abiapuntu. Behin kontra-**errailea** izan zuen, justiziaren ala karitatearen lehentasunaz: Sigala apeza, Périgueux-ko meraren axuanta, filosofia erakaslea, presuna ohargarria eta maitagarria, nehon baldin bazen. Herria

Ipuinarekin batera, zikoinak oroitu ere egin du hantxe bertan, bere birramonak katedralaren pinakulu batean lo egin zuen batean, ipuin berbera entzun zuela ipuin kontalari edo, han zioten gisan, istorio **erraile** baten ahotik. Patxi Zubizarreta

---

errain[1] *(orobat **errein** eta **erren** g.er.) iz* semearen emaztea.

Ezkon zaitez nire semearekin eta nire **errain** izango zara. aitaginarreba eta **errain** baten gorabeherak. Patxi Zubizarreta

Gizonezko fededun zorrotzen emazte, alaba, **errain**, arreba eta amak. Edorta Agirre

Presoen arreba edo ahizpa, alaba, ama, neska-lagun, iloba, emazte, izeba, amona, amaginarreba, **errain**, lagun... Jokin Urain

Gurasoak harro zeuden **errain** berriarekin. Juan Kruz Igerabide

Honela itzuli zen, bada, Noemi Moabeko landetatik, Rut **errain** moabdarra berekin zuela. Jose Antonio Mujika

1998an, Indira Ghandiren **errain** Soniak, alderdiaren zuzendaritza hartzean, barkamena eskatu zien. Berria - Mundua

37az geroztik, Bayreutheko Wagnerri buruzko jaialdi ospetsuaren antolaketa lanetan esku hartzen zuen, Richard handiaren **errain** Winifred Wagnerrekin elkarlanean. Alberto Ladron Arana

Osoko Udalbatzak dolumin eta nahigabe sakona adierazi die Martin Ugalderen alargun Anamari Martinez andreari, Unai, Itxaso eta Ainara seme-alabei, suhi-**errain**, biloba, iloba eta gainerako ahaide eta lagun guztiei. Berria - Kultura

---

errain[2] *iz ipar* giltzurrunak.

Gustatzen zitzaion **errain** ukaldi batez zamaren bizkarreratzea. Itxaro Borda

Amak **errain** ukaldi bakoitz intziri hezeak askatzen zituen. Itxaro Borda

Nolabait kontsolatzeko bilatzen zituen hitzak murmuratzen zituen, azpiak kapitainaren **errain**-ukaldiei eskainirik eta gogoa hegan. Itxaro Borda

---

erraintxo *iz adkor* erraina.

Azkar samar ez ote genbiltzan bota zidan amak berriro, baina leihoa zabalduta sartzen den aire freskoaren antzera hartzen zuen "bere **erraintxoa"**, eta laster etxekotu zen Idoia. Juan Kruz Igerabide

---

errainu 1 *iz* argiaz mintzatuz, izpia.

Gehien makurtzen ziren **errainuak** (errefrakzio handienekoak) more ikusten ziren; errefrakzio txikienekoak, gorri; espektroko gainerakoak, berriz, bien artean. Xabier Olarra

Hortik aurrerako egunetan egunetik egunera motelduz joaten da bere biraketan ilargiaren hilabetea osatzen duen arte, eta bere ibilian eguzkitik urrunduz honen gurpilaren eta **errainuen** azpian jartzen da, eta honela osatzen du egunen hileko kopurua. Santiago Iruretagoiena

Eguzkiaren **errainua**, beroa; izotza, hotza. Juan Kruz Igerabide

Leku irekietan, ordea, adibidez exedra eta peristiloetan, leku horietan eguzkiaren **errainuak** eta ilargiaren distira sartzen direlako, **errainu** horiek ukitzen duten lekuetan hondatu egiten da, eta kolorearen indarra galduz belztu egiten da. Santiago Iruretagoiena

Alde haren mutur batean zuen jarria Klarak bere saltokia, Lagun liburu-dendaren ondoan, justu argizagiaren **errainuak** goitik behera fatxada osoaz jabetu eta lurreko itzala atzerarazten hasi zirenean. Iñaki Iñurrieta

Tamalez, eguneko azken **errainuak** behar baino luzaroago iraun zuen. Edorta Jimenez

Ez zen kriseilu baten **errainuen** ziskua baino harago ikusten. Edorta Jimenez

Eguzkia bezala agertuko da nire justizia, **errainuetan** osasuna dakarrela. Elizen arteko biblia

Zerua une batez argitu egin da, sufrea bezain **errainu** hori batek ebakitzen du gaueko iluntasuna. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arrosak argitan zeudenean eta eguzkiak bere **errainu** garbia aurreko horman ezartzen zuenean, bazirudien isiltasun, axolarik eza eta osotasun honetara zerbait erortzen zela, danbateko batekin. Anton Garikano

Plazan **errainu** gorri bat ikusten zen, eta auzoko batzuk topatu genituen; ez ziren ausartzen Marroren etxera hurbiltzera. Juan Kruz Igerabide

Belarritxo meheak ere garden ageri ziren, **errainu** epelek gorrixkaturik. Jose Morales

Ohean dago baina sukaldeko labanaren distira ikus dezake, zilarrezko **errainua** irudika lezake ilunpean. argia itzali, bata erantzi eta ilunpetan sartu nintzen ohean, kaleko leihotik sartzen zen erdi itzalezko **errainuari** esker erabatekoa ez zen ilunpetan. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kolorea, argi distiratsu baten **errainu**-intentsitatearen poderioz, gris-aluminiozkora hurre zegoela esan liteke. **Errainu** mota bakoitza begirantz islatzen zuten **errainuen** "ugaritasun"aren araberakoak ziren, Newtonen ustez, gauzen koloreak. Josu Landa

Errainu-banatzeko kamera bat erabiliz eta lente berdinaz baliatuz, aldi berean ikuspuntu beretik hartu ahal izateko. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ganbaratxoan, argi-**errainu** batzuk sartzen ziren teila artetik eta hormako arrailduretatik. Juan Kruz Igerabide

Ganbarako beirate batetik azken argi **errainu** bat sartu zen, eta egunak hantxe ilundu zuen. Edorta Jimenez

Hautsa zintzilik zegoen eguzki **errainu** batean, koadrorik gabeko leiho batetik sartutako argian. Juan Kruz Igerabide

Axola handirik ere ez, ilargi-**errainuarena** aitzakia hutsa baitzen, neska erromantikoren bat engainatzeko eta benetako intentzioa ezkutatzeko, hots: mutilek egindako ihesaldi hartan bezala, larrugorritan bainatzen amaituko ote duten. Xabier Mendiguren Elizegi

Mendiak ere beren itzalarekin tartean jartzen direnez, eguzki-**errainuak** ez dira lurrera zuzenean iristen eta ura ez dute lurruntzen. Santiago Iruretagoiena

Amona Erikak gelatik irteten ikusi ninduenean, zerbait atera zuen harizko jakaren patrikatik poz-**errainuzko** aurpegi batez. Anjel Lertxundi

5 irud/hed

Itxaropen **errainu** bat ekarri zuten haren hitzek herenegun («Euskal Bizikleta irabazi nahi dut»), baina printza artifiziala zen. Berria - Kirola

Albertiren lanetan, margolariaren begia eta ihes-puntu nagusia lotzen dituen erradio nagusiari *Jainkoaren* ***errainu*** deitzen zaio oraindik. Josu Zabaleta

Naturak ematen dizkigun justizi **errainu** ahul horiek. Iñaki Iñurrieta

Adiskidetzearen **errainu**-izpiak hasiko ote dira, oraindik ilunbistan, argi egiten? Berria - Euskal Herria

6 itzala.

Elurra ari zuen, eta **errainua** bezalako zerbait ikusi nuen bidean hurbiltzen. Xabier Olarra

Gorrotoak zaildu egiten zizkidan amarekiko harremanak, eta, batez ere, **errainuz** betetako erresumara eramaten ninduen hainbatetan, hamabost edo hamasei urte nituenean bezala. Bernardo Atxaga

Hotela ere leku berezi bat zen orain niretzat: nire Bigarren Begiek ikusten zuten kobazuloko **errainu** handienaren bizitokia, Begigorriyarena, Berlinorena. Bernardo Atxaga

Nire Bigarren Begiek kobazulo iluneko **errainuak** erakusten zizkidaten inoiz ez bezalako zehaztasun batez, osaba Juanen joatearekin berpiztu egin balira bezala: hantxe zegoen, lehen bezain beldurgarri, Martinen eta Teresaren aita, Berlino Begigorriya. Bernardo Atxaga

Hantxe, beti bezala, azken **errainu** hura ere, Angel, nire aita. Bernardo Atxaga

Gorrotoak zaildu egiten zizkidan amarekiko harremanak, eta, batez ere, **errainuz** betetako erresumara eramaten ninduen hainbatetan, hamabost edo hamasei urte nituenean bezala. Bernardo Atxaga

Arrain bat hara eta hona dabil beti ur azpian, eta hain azkar batzuetan non bere **errainua** besterik ez dugun ikusten Bernardo Atxaga

7 irud/hed

Istant bat izan da murgildu aurrekoa, betikotasunezko unea ordea: gorputz zuri bat ilargipean, ur beltzen gainean **errainu** iheskor bat osatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Txikitan, historia horren **errainua** ikusi nion, inondik ere, Adelari begiradan. Juan Kruz Igerabide

Lehen **errainuen** hatz-muturrak piramideen erpinetan zauritzen dira, eta argizko odola ertzetan behera dator, urrezko esne elikagarri gisa irristatuz eta bizi-gogo bihurtuz. Juan Kruz Igerabide

Maite ote du egiazki euskal jendea, Patri? Niretzako nago, herria barik, haren **errainua** duela soilik maite, nola zakur eroak, sekula harrapa ez dezakeen isatsa. Hasier

Etxeberria

Baina sakoneko egia baten **errainua** ere ageri da, itxuraz, gezur horien arteko zirrikituetatik: Lauaxeta ez zen oso eroso sentitzen anarkisten eta komunisten ondoan borroka egiten Berria - Harian

8 (izenondo eta izenlagunekin)

Gauero, Bigarren Begiekin kobazulo ilunera begiratzean, lau figura haiek **errainu** hutsari dagokion baino funts handiagoa hartzen zuten, Angelek edo Berlinok zeukatenaren parekoa. Bernardo Atxaga

Zeru gorriak ur haren gainean **errainu** zikinak egiten zituen. Juan Kruz Igerabide

Gertaera hura beste zerbait gogorragoaren **errainu** apal bat besterik ez zen, aldi hartan disidentzia guztia suntsitzen ari baitzen Stalin, Trotski kidea bera aurren buruan. Juan Kruz Igerabide

"Estiloa gizona da", esan zuen gizonen batek, eta paretetako literaturaren estiloa pareta horien artean ibili ohi den jende-modua da, edo haren **errainu** idatzia. Iñaki Segurola

Agian ahulduta neukan espiritua egunak eta asteak koadernoko zerrenda burutik ezin kenduz egon ondoren, lilurapean egon ondoren kobazuloko **errainu** geldi eta zurbilekin. Bernardo Atxaga

Nire Bigarren Begiek ikusten zuten kobazuloko **errainu** handienaren bizitokia, Begigorriyarena, Berlinorena. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argi errainu (17); **argi errainu bat** (5); **argi errainu batek** (3); **argi errainuek** (3); **bere errainu** (3); **bere errainuak** (3); **bere errainuekin** (3); **eguzki errainu** (11); **eguzki errainu bat** (4); **eguzki errainuak** (5); **eguzki errainuek** (6); **eguzki errainuen** (3); **eguzkiaren errainuak** (7); **eguzkiaren errainuek** (3); **errainu bat** (20); **errainu batek** (6); **errainua ikusi** (3); **errainuen azpian** (3); **eta errainu** (5); **eta errainuen** (3); **haren errainu** (5)

---

errainutu, errainu, errainutzen da/du *ad* islatu.

Erabateko eta singlea den ulermena mintzoan adierazten eta **errainutzen** da, bere Semegan, bere Hitzean. Joan Mari Lekuona

Dirdai egin zenidan begi ahuletara, nigan bortizki **errainutuz**, eta dar-dar jarri nintzen maitez eta ikaraz: zugandik urrun nengoela ikusi nuen, bestelakotasunaren eskualdean, zure mintzoa handik goitik entzungo banu bezala. Imanol Unzurrunzaga

---

errainutzar *iz adkor* errainu handia.

Lanza artean jota zegoen, logurak eta tupusteko esnaldien hotzak; sutegiaren aurrez aurre kuzkurturik geratu zen, eta sutegiko gar gorriak, distiraldi bizkorren gorabeheraz, haren **errainutzar** larria itzal. Juan Garzia

---

erraizun *iz* esamesa.

Eta urliaren eta sandiaren **erraizunak** eta erran-merranak zeuden, hau gertatu ote zen, hura gertatu ote zen. Joan Mari Irigoien

---

erraketa **1** *iz* pala mota sareduna.

Nobelaren amaieran Joseba Gotzonek bere pala eta Moniqueren **erraketa** gurutze gisa erabiliz lortuko duelako Valeri menperatzea, sinbolo hori dela medio. Jon Arretxe

Erraketen eta teniseko piloten kolpe-hotsak iruditu zitzaizkidan. Anjel Lertxundi

Hobe da pala erabiltzea, ze gaurko **erraketak** ez dira egurrez egiten eta mundu guztiak daki banpiroak akabatzeko egurra behar dela. Jon Arretxe

-Joseba Gotzonek pala mailu gisa erabiltzeko beharko du, eta gainera ez dago arazorik Valeri **erraketaren** helduleku zorroztuaz hiltzeko, ze aldez aurretik azti boteretsuak bedeinkatuta egongo da. Jon Arretxe

Gizon gazte lerdenak ziren, eraman errazeko arropa nasaiez jantziak, abilak golfean nahiz squash **erraketekin**, eta Geralden lagun eta kideak nola unibertsitatean hala klubetan. Mirentxu Larrañaga

2 teniseko erraketaren antzeko lanabesa, elurretan ibiltzeko oinetako gisa erabiltzen dena.

Horrela, intsektua aise mugi daiteke petrolio likitsaren gainean, **erraketak** jantzita ibiliko balitz bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erraki ik **erreki**.

---

errakitiko **1** *izond* izaki biziez mintzatuz, beharrezko garapena izan ez duena; errakitismoak joa.

Lehenbiziko haurra izan zutenean, hari kasu egiteko modua maiseatzen zuen aitak, eguzkia maizago hartu behar omen zuen, bestela **errakitiko** gelditukо zela. Fernando Rey

" **Errakitiko** gelditukо zaie!", esaten zion oihuka gure amari. Fernando Rey

2 irud/hed

Adibidez, soilik "nire zakurra berdea da" eta "bihar eguzkia aterako da" usteak dituen mundu **errakitikoa** baldin badugu, hemen ez da inkontsistentziarik sortzen, baina argi dago ez dela nahikoa bi uste horiek justifikatu ahal izateko. Askoren artean

---

errakitismo *iz* haurren eritasuna, kaltzioaren eta fosforoaren gabeziak eragina, hezurren deformazioa dakarrena.

Eguzkia onuragarria da azalarentzat, D vitaminaz hornitzen baitu, hezurren kaltzio xurgaketa errazten duelako, eta **errakitismo** zein osteoporosia ekiditeko lagungarri delako. Berria - Harian

Tuberkulosia, **errakitismoa** eta zakar-potez betetako kale zikin pilo bat uzten dizkigute... Lopez de Arana

---

erraklasamendu ik **erreklasamendu**.

---

errakuntza **1** *iz* hutsegitea.

Egiaren bilaketa eta **errakuntzaren** kontrako borroka ahanztea. Xabier Kintana

-Pausoak diozun lekuan nik akatsak, **errakuntzak** ikusten ditudalako. Pako Aristi

Baconek **errakuntzak** lau kategoriatan sailkatzen ditu, ondorengo hauek, alegia, *idola tribus,* edo eta giza-izaeraren **errakuntzak**, *idola specus,* edo norberaren **errakuntzak**, *idola fori,* edo mintzairaren **errakuntzak**, eta azkenik *idola theatri,* hau da, sistemen **errakuntzak**. Jon Alonso

Ukatzen baldin baduzu, asma ezazu, ahal baduzu, **errakuntzaren** edo gezurraren forma osa lezakeen pentsatzeko modu positibo bat. Piarres Xarriton

Errektoretzaren iritziz, greba «**errakuntza**» da, konponbide batzuk atzeratu eta lorpen batzuk kolokan jarriko dituelako. Berria - Euskal Herria

Egiten duten lehen **errakuntza** da ulertzen ez duten guztia **errakuntza** dela epaitzean, eta aldi berean **errakuntza** oro heresia dela, hisituki **errakuntzari** atxikitzea soilik heresia eta heretiko izatea egiten dituenean. Joan Mari Lekuona

Bada hemen gauza ilun bat, **errakuntza** sorrarazi diena. Xabier Kintana

Gure **errakuntza** ez datza irudikizun huts horretan, baizik eta irudikatze hori egiten dugularik ez baitakigu zer den ez egiazko distantzia ez zer den gure irudikizunaren kausa. Piarres Xarriton

Errakuntza honen kausa nagusia da gizakiak ez duela bere burua ezagutzen. Imanol Unzurrunzaga

Zilegi zaigu ondorioztatzea, **errakuntza** egiteko arriskurik txikienarekin, agian Salbatzailearen etorrera hura azkarregi gertatu zela. Jon Alonso

Aladinoren historiak **errakuntzaz** kontatzen du afrikar magoa bere jauregian pozoitua izan zela. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Errakuntza galanta! Imanol Unzurrunzaga

Balkanetako gerraren oinarrian Europak egindako **errakuntza** handi bat dago, zure ustez: Jugoslaviako komunitate islamista ez-integristak ez aitortu izana. Berria - Mundua

Errakuntza "liberal", "modernista" eta "zientifikoen" aurkako atzegoardiako jarduera intelektuala gidatzen zuen bitartean, arkaismo politikoaren jarreran erori zen. Iñaki Mendiguren

Errakuntza estrategiko handia da oinarri problematiko baten gainean teologia eraikitzea. Xabier Kintana

Honelaxe egokitzen dira **errakuntza** historikoak, Urliak dio Sandiak dioela Berendiak aditu zuela, eta hori bezalako hiru aditurekin historia bat asmatzen da. Jon Alonso

Zinez da **errakuntza** ikaragarria, zeren denok nahi dugularik geure onura, jende asko norbere kaltetan soilik aritzen baita. Imanol Unzurrunzaga

Faltsua egiazkotzat onartzen eta defenditzen, gisa honetako gauza kontrajarrietara eramanez: arestian onartua handik gutxira gaitzetsi, **errakuntza** berrietan amilduz; norbere aburua geldiarazi, arrazonamendu guztiz argiak zalantzan jarriz gehienetan; [...]. Imanol Unzurrunzaga

Errakuntza topologiko nabarmena bizi zuen, bere bizitzaren ardatza beste nonbait jarri zuen beti. Joseba Sarrionandia

Baina zientzialariaren ustea oinarrizko bi **errakuntzak** biziatuta zegoen. Iñaki Mendiguren

Horrela, ordea, iluntasunetan eta kontraesanetan nahasten da, eta hauetatik abiatuta oinarrian nonbait ezkutuko **errakuntzek** egon behar dutela ondoriozta dezake. Ibon Uribarri

Errakuntza bat zen hitzaldi osoa, goitik hasi eta beheraino, erabateko **errakuntza**. Irene Aldasoro

3 (hitz elkartuetan)

Ciesen esanetan, bere datuen **errakuntza** tartea %1,8koa da datu orokorretarako eta %3,2 ingurukoa probintzietakoetarako. Berria - Euskal Herria

Hori egin dezakegu **errakuntza** arriskurik gabe, premisa guztiz argirik gabe deusik ez erabakitzeko aitzinetik arta hartzen dugun ber. Piarres Xarriton

· HOM gene horietariko bat edo besteren mutazioak dakar, bada, segmentu baten baitako nortasun **errakuntza**. Juan Garzia

Erromatar elizaren lehen bulkada, [...] Elizaren aliatu intelektual heleniko zaharraren aurka egindako erasoa gaitzestea izan zen, astronomiaren teoria geozentrikoa kristau-fedearen artikulu izan balitz bezala, eta Galileok egindako Ptolomeoren zuzenketa teologi **errakuntza** izan balitz bezala. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errakuntza bat (8); **errakuntza da** (4); **errakuntza eta** (4); **errakuntza hau** (3); **eta errakuntza** (3); **eta errakuntzak** (3)

---

errakzio ik **erreakzio**.

---

errakzionatu ik **erreakzionatu**.

---

erraldoi **1** *izond* pertsona, animalia eta landareez mintzatuz, bere motako edo saileko gehienak baino askoz tamaina handiagoa duena.

Gizon **erraldoi** bat agertu zen atalasean. Iñaki Mendiguren

Plazaren erdian, hara gizon **erraldoi** bat agertu, zikina, bizarduna. Jon Muñoz

Berak hil zuen bi metro eta erdiko egiptoar **erraldoi** bat ere. Elizen arteko biblia

Ubanbe esaten zioten mutil **erraldoia**. Bernardo Atxaga

Ezin ditugu pasatzen utzi ezer esan gabe, nahiz eta gure hitzak David txikiaren harriak izan (nire 2.000 irakurle horiek osatua) Goliat **erraldoiaren** aurka (aldizkariak dituen bi milioi irakurleren masa). Pako Aristi

Bizkarra zilarreztatzen hasitako gorila **erraldoi** batek burua jaso du. Pako Aristi

Munstro **erraldoi** odolzalea da. Joanes Urkixo

Horrekin batera beste sentsazio bat, guztiz kontrakoa, huts infinituarena, nagitasun barearena, munduaren gainean geldituko litzatekeen eta pausatzeko unea geroratuko lukeen hegazti **erraldoi** batek eman lezakeen bezalakoa. Jon Alonso

Dima haraneko biztanleek zin egiten zutenez, Sugoi, Azpimundurako atea zaintzen zuen sugertzar **erraldoia**, Baltzola leizezulo barrura itzulita zegoen, handik ehunka urte lehenago uxatua izan bazen ere. Joanes Urkixo

Nekatu eta ahitu egiten baitzuen, halaber, olatuak beso zituèn olagarro **erraldoi** hari etengabe aurre egin behar izateak. Joan Mari Irigoien

Hozka egiteko prest dagoen zakur **erraldoi** baten antza zuen. Alberto Ladron Arana

Tximino **erraldoi** bat ikusi zuen, bere ipurdi gainean eserita, jostunen edo turkiarren gisara hankak gurutzatuta. Josu Zabaleta

Pasabidea bihurritu eta okertu egiten zen; beste ezer baino gehiago untxi **erraldoi** baten gordelekua ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Bi ate beherago kaiola handi batean armiarma beltz **erraldoiak** zeuden bizirik. Iñaki Mendiguren

Ikastetxeak dragoi **erraldoia** ematen zuen, goizeko zortzietan irentsitako haurreria orain arratsaldeko bostetan goragalez oka botatzen. Joseba Sarrionandia

Urak daroatzan haritz **erraldoietarik** haizeak hautsi eta erori abartxoen antzera.

Sabaitik zintzilika zeuden euritakoaren tamainako lore **erraldoi** batzuen lurrin biziarekin. Iñaki Mendiguren

Erreka hegiko belar **erraldoietan** jauzika ibiltzeko. Itxaro Borda

2 (bestelakoez)

Hagridek bere ukabil **erraldoia** altxatu eta hiru aldiz jo zuen gazteluko atea. Iñaki Mendiguren

Dorre zuriak begi **erraldoi** bat zabaldu balu bezala izan zen. Alberto Ladron Arana

-Urrezko giza oin **erraldoi** bat, zelai urdin batean. Koro Navarro

Bere bularrek malko **erraldoien** forma zuten. Harkaitz Cano

Ziba **erraldoi** bat bezalakoa zela Lurra, Jainkoak espazioan dantzan jarritakoa. Joan Mari Irigoien

Ematen zuen isiltasunak, izara **erraldoia** bailitzan, hotela biltzen zuela. Bernardo Atxaga

Zapata-zola **erraldoien** arrastoak ematen duten zulo bitxiz betea dago harkaitza. Koldo Izagirre

Jolas-parkea uztean, pailazo **erraldoi** baten ahotik irten nintzen. Harkaitz Cano

Hiri arrotz **erraldoi** baten erdian. Alberto Ladron Arana

Paris handiegia zen, **erraldoiegia** inork ni bezalako etorri berri bati erreparatzeko. Alberto Ladron Arana

Arte azoka **erraldoia** atzo itxi zuten, salmenta onekin. Berria - Kultura

Hilabete gutxiren buruan, amaituta zegoen parke tematiko **erraldoi** bat, kristalezko estalki batek babestutako printzesaren inguruan eraikia. Iban Zaldua

Labe Garaietako eraikin **erraldoiek** betetzen zuten paisaiaren erdia. Josu Landa

Karpa **erraldoia** leporaino bete zen, eta jende askok kanpotik entzun zuen, euripean. Berria - Euskal Herria

Etxetik hamar mila kilometrotan, hotel **erraldoi** baten hogeita hamargarren estaiako ganbera baten garbigelako komunetako jargian biluz gorri jarririk. Ramuntxo Etxeberri

Azoka-leku **erraldoia** fabrika zaharra izango da beti torinotarrentzat. Anjel Lertxundi

Esnearen biltzeko eta begiratzeko metalezko egoitza **erraldoien** gainetik altxatzen dira bizpahiru tximinia mehe, mundua zurrupatuko balute bezala. Itxaro Borda

Pippinen begirada egongela **erraldoian** galdu zen. Agustin Otsoa

Ez zuen itxuraz arazorik izan, prismatikoen jabe ez izan arren, fisikaren legeak mespretxatzen zituzten Junker 52 **erraldoiak** ezagutzeko. Ramon Saizarbitoria

Enrique Del Valle, 27 urtekoa, Espainiako Segovia hirian jaioa, deseroso mugitu zen Citroën 11CV **erraldoiaren** larruzko eserlekuaren gainean. Alberto Ladron Arana

Jaurlaritza «serio» aztertzen ari da hiru ontzi **erraldoi** eraikitzea, kamioiak itsasoz Frantzia iparraldera garraiatu eta errepideetako trafikoa arintzeko. Berria - Ekonomia

Hamar eta erdiak Abenidako erloju **erraldoian**. Karlos Linazasoro

Metro t'erdiko zabalera ezdeusa eta bi metroko luzera barregarria zituen ateño huraxe zen zubi **erraldoirako** sarrera. Harkaitz Cano

Grand Palaisen mailara iritsi zirenean, hantxe ikusi zuten eraikineko habearte **erraldoia**. Jon Muñoz

Elur bola **erraldoia** bilakatzen du denborak memoria. Pako Aristi

Zenbat eta **erraldoiagoa** piramidea, orduan eta apalagoak gu. Jon Muñoz

Metro berriaren betoizko egitura **erraldoien** gainean ziren batzuk, soka bakar batekin zintzilikatuak.Premia larri batek bultzatuta, tenplu bitxi hartan sartu eta, astiro-astiro, zutabe **erraldoi** haien artetik ibiltzen hasi nintzen. Ramuntxo Etxeberri

Manhattango irla arroka **erraldoi** bat da, edozer jasango luke bere gainean. Harkaitz Cano

Indian, berriz, olatu **erraldoiek** hegoaldeko kostaldeko 2.000 kilometro inguru urperatu dituzte. Berria - Mundua

Larsen B plaka erabat banandu zen eta izozmendi **erraldoi** bihurtu zen. Berria - Gaiak

Goren-gorenean, aurrez aurre, bi harritzar **erraldoi**, bata zutik, bestea belarretan etzana, menhir bat eta dolmen bat, senar-emazte harrigarriak bailira. Josu Zabaleta

NASAko lantalde batek Columbia deritzaion super-konputagailuaren bidez bi zulo beltz **erraldoiren** topaketaren ondorioak aztertu ditu. Berria - Gaiak

Enrique Del Valle, 27 urtekoa, Espainiako Segovia hirian jaioa, deseroso mugitu zen Citroën 11CV **erraldoiaren** larruzko eserlekuaren gainean. Alberto Ladron Arana

Nik baiezko labur urduriz erantzuten nion, begiak maleta **erraldoiari** josita: bertan egonen baitzen, aitaren arropen artean kukuturik, nire oparitxoa. Alberto Ladron Arana

Metalezko liburu **erraldoiaren** altzoan lo zegoen arratoi bati ostiko eman zion nahi gabe. Harkaitz Cano

Bisitariek 50 kiloko euskal pastiza **erraldoi** bat ikusi dute hor paratua. Herria

Aspaldi haserre egondako jendearen arteko besarkadak ikusi genituen manifestazio **erraldoian**. Bernardo Atxaga

12:00etatik 20:00etara: Rock jaialdi **erraldoia**. Berria - Harian

Euskal-Herri guziko euskalzaleen topaketa **erraldoia**, Bilbon,San Mames kirolzelaian. Herria

Urrunean agertzen ziren saltegien eta iragarki **erraldoien** neonezko argiek pinpirin dirdiratsuak ziruditen. Ramuntxo Etxeberri

Bi ekonomia **erraldoien** hazkunde erritmoaren erakusle dira zifra horiek. Berria - Ekonomia

Raich eta Dorfmeister austriarrek zintzilikatu dute urrea eslalom **erraldoian** eta super-**erraldoian**. Berria - Kirola

Denek bat egin zuten proiektu **erraldoiaren** kontra. Edurne Elizondo

Itsasontzitik jaisten diren bidaiariek neurri **erraldoiko** hiri bat aurkitzen dute aurrez aurre, luxu txit harrigarrikoa. Jon Muñoz

Atondo eliptiko **erraldoiko** mosaikoaren gainean ipini zuen laukoteak aulki gurpilduna. Jon Muñoz

Denak daude lo **erraldoi** batean murgilduta. Jon Alonso

Akidura **erraldoiak** lur lohitsuan gurutzefikatua. Itxaro Borda

Iluntzen ari da apurka apurka eta *Nafarroa Oinez* **erraldoi** bat dirudi honek. Harkaitz Cano

- **3** *iz* ohikoa baino askoz ere garaiera handiagokoa den pertsona.

Badaude **erraldoiaren** atalak, *disjecti membra gigantis;* hemen belauna, han enborra edo omoplatoa, haratago burua. Koldo Izagirre

Erraldoia etxolara sartu zen pixka bat makurtuta, buruak sabaia jotzen baitzion. Iñaki Mendiguren

Erraldoiak te-zurrutada bat egin eta ahoa garbitu zuen eskuaren gainaz. Iñaki Mendiguren

-Begira beza berorrek -Santxok erantzun- han ageri diren haiek ez dira gero **erraldoiak**, haize-errotak baizik. Patxi Ezkiaga

Suntsiturik, dorrea sutan zen, **erraldoien** su bat balitz bezala, eta su hartan batek daki zenbat gizon bihurtzen ziren txingar eta errauts. Jon Alonso

Erraldoiaren arnasketa estutzen hasi zen laster eta bekokia izerdiz busti zitzaion. Joanes Urkixo

Zid Rui Diaz zaldun ona izan zela bai, baina urrutitik ere ez zuela Ezpata-Bero zaldunaren antzik, beso bakarraren errebeskada batean bi **erraldoi** erdibitu zituena, itsusi ikaragarriak biak. Patxi Ezkiaga

Erraldoi mitologiko baten ilaje librea iruditu zitzaion. Fernando Morillo

Antzinako **erraldoi** harroak galdu zirenean, ontzixka batean babestu zen munduaren itxaropena. Elizen arteko biblia

Ni, etxekoandre, Karakulianbro **erraldoia** nauzu, Malindrania uharteko Jauna, ezohiko borrokan Don Kijote Mantxakoak bentzutu nauena. Patxi Ezkiaga

Oparo goraipatzen zuen Morgante **erraldoia**. Patxi Ezkiaga

4 *pl* herri jaietan ateratzen diren kartoizko irudi handiak.

Azkenean **erraldoiak** agertu ziren, txaranga eta guzti, inor gutxik espero zituenean. Berria - Kirola

Larunbatean 9etarik landa Rugby zelaian lehen Fabrice Sanzberro trofeoa Rugby txapelketa 7 jokolarirekin 11etan eta 16etan - **erraldoien** ibilaldia karriketan eguerditan aperitifa eta bazkaria plazanAntzerki taldeak, musika taldeak, pailazo taldeak, gaiteroak, **erraldoiak**, buruhandiak, titiriteroak, malabaristak... gonbidatu ditugu. Herria

Gainera, egun horretan egiten den ziganteen elgarretaratzean parte hartuko dute Debako **erraldoiek**, Donapaule, Txantrea, Baiona, Bilbo eta Kanboko Sukila elkartekoekin. Herria

Ohiko mami aberatsa zuten gozatzeko: **erraldoi** eta buruhandien karrika itzuliak, herriko zaindariaren prozesioa, txirrindularitza, zaldi lasterketa, zango eta eskubaloi partidak, sagarno lehiaketa, behi primaketa, indar joko, entzierro, kontzertu. Herria

Bertsolariak, pailazoak, kale antzerkia, fanfarreak, hankapaloak, **erraldoiak**. Berria - Euskal Herria

10 etan - Gaitero eta **Erraldoiak**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aho erraldoi (3); **animalia erraldoi** (3); **argazki erraldoi** (3); **armiarma erraldoi** (4); **armiarma erraldoi bat** (3); **ate erraldoi** (5); **azpiegitura erraldoi** (5); **bi aho erraldoi** (3); **bi erraldoi** (5); **egitasmo erraldoi** (3); **engranaje erraldoi** (3); **enpresa erraldoi** (3); **eraikin erraldoi** (5); **erlauntza erraldoi** (3)

erraldoi bat (167); **erraldoi bat agertu** (3); **erraldoi bat da** (5); **erraldoi bat egitea** (3); **erraldoi bat eraiki** (4); **erraldoi bat ikusi** (5); **erraldoi bat izan** (3); **erraldoi bat jarri** (3); **erraldoi bat zegoen** (5); **erraldoi bat zen** (5); **erraldoi batean** (19); **erraldoi batek** (27); **erraldoi batekin** (6); **erraldoi bateko** (7); **erraldoi baten** (59); **erraldoi baten antzera** (5); **erraldoi baten moduan** (3); **erraldoi batez** (3); **erraldoi bati** (4); **erraldoi batzuk** (3); **erraldoi berekoia** (4); **erraldoi bihurtu** (3); **erraldoi bihurtuko** (3); **erraldoi daude** (3); **erraldoi eraikitzea** (3); **erraldoi eta** (35); **erraldoi haiek** (5); **erraldoi haien** (3); **erraldoi haren** (6); **erraldoi hari** (4); **erraldoi hark** (4); **erraldoi hartan** (5); **erraldoi hau** (3); **erraldoi honen** (6); **erraldoi honetan** (4); **erraldoi hori** (12); **erraldoi horiek** (6); **erraldoi horien** (4); **erraldoi horietako** (6); **erraldoi horietako bat** (4); **erraldoi horrek** (9); **erraldoi horren** (8); **erraldoi horretan** (6); **erraldoi horri** (4); **erraldoi hortan** (3); **erraldoi hura** (13)

esku erraldoi (3); **espetxe erraldoi** (3); **eta erraldoi** (6); **gizon erraldoi** (7); **gizon erraldoi bat** (5); **halako erraldoi** (3); **hegazti erraldoi** (5); **herri erraldoi** (3); **hiri erraldoi** (4); **hiru ontzi erraldoi** (3); **idazmakina erraldoi** (3); **izozmendi erraldoi** (4); **izozmendi erraldoi batek** (3); **karpa erraldoi** (5); **liburu erraldoi** (4); **makina erraldoi** (3); **manifestazio erraldoi** (3); **mendi erraldoi** (4); **munstro erraldoi** (3); **obra erraldoi** (3); **olagarro erraldoi** (3); **olatu erraldoi** (8); **olatu erraldoi batek** (3); **ontzi erraldoi** (9);

ontzi erraldoi eraikitzea (3); **pankarta erraldoi** (8); **pankarta erraldoi bat** (4); **pantaila erraldoi** (7); **pantaila erraldoi bat** (4); **piztia erraldoi** (3); **plan erraldoi** (3); **proiektu erraldoi** (8); **txibi erraldoi** (3); **tximinia erraldoi** (5); **zen erraldoi** (4)

ate erraldoia (4); **defizit erraldoia** (3); **egitasmo erraldoia** (3); **ekitaldi erraldoia** (3); **eraikin erraldoia** (5); **erakusketa erraldoia** (3); **erraldoia antolatu** (4); **erraldoia baino** (4); **erraldoia balitz** (3); **erraldoia balitz bezala** (3); **erraldoia bihurtu** (3); **erraldoia da** (16); **erraldoia dago** (3); **erraldoia egin** (7); **erraldoia egiteko** (7); **erraldoia ere** (3); **erraldoia eta** (8); **erraldoia gizonezkoak** (5); **erraldoia hil** (3); **erraldoia ikusi** (3); **erraldoia irabazi** (3); **erraldoia izan** (8); **erraldoia izango** (5); **erraldoia izango da** (3); **erraldoia osatzen** (3); **erraldoia zen** (7); **eslalom erraldoia** (11); **eslalom erraldoia gizonezkoak** (3); **eta eslalom erraldoia** (3); **hegazkin erraldoia** (7); **hiri erraldoia** (3); **ikurrin erraldoia** (3); **itzal erraldoia** (3); **kalejira erraldoia** (3); **karpa erraldoia** (11); **lan erraldoia** (5); **makina erraldoia** (5); **manifestazio erraldoia** (10); **museo erraldoia** (3); **okupazio erraldoia** (5); **pantaila erraldoia** (6); **sare erraldoia** (4); **sugetzar erraldoia** (5); **super erraldoia** (10); **topaketa erraldoia** (3)

anak erraldoiaren (6); **anak erraldoiaren ondorengoak** (6); **armiarma erraldoiak** (3); **azpiegitura erraldoiak** (3); **eraikuntza erraldoiak** (4); **erraldoiak balira** (5); **erraldoiak balira bezala** (3); **erraldoiak bere** (3); **erraldoiak daude** (4); **erraldoiak dira** (4); **erraldoiak egin** (3); **erraldoiak ere** (3); **erraldoiak eta** (3); **erraldoiak ez** (3); **erraldoiak hartu** (3); **erraldoiak izan** (3); **erraldoiak jarri** (3); **erraldoiak munduan** (3); **erraldoiak ziren** (5); **erraldoian eta** (5); **erraldoian parte** (3); **erraldoiaren aurrean** (4); **erraldoiaren azpian** (3); **erraldoiaren barruan** (3); **erraldoiaren eta** (3); **erraldoiaren gainean** (3); **erraldoiaren ondorengoak** (6); **esan zion erraldoiak** (3); **eslalom erraldoian** (11); **eslalom erraldoian eta** (3); **eta erraldoiak** (6); **eta eslalom erraldoian** (3); **eta super erraldoian** (4); **etxe erraldoiak** (3); **gela erraldoian** (3); **karpa erraldoian** (5); **kontzertu erraldoiak** (3); **lan erraldoiak** (3); **manifestazio erraldoiaren** (4); **olatu erraldoiak** (6); **ontzi erraldoiak** (3); **pantaila erraldoiak** (3); **pantaila erraldoian** (5); **super erraldoian** (9); **talde erraldoiak** (4); **txibia erraldoiak** (5); **urtegi erraldoiak** (3); **zion erraldoiak** (4)

bi erraldoien (3); **eko erraldoien** (3); **erraldoiek eta** (3); **erraldoien artean** (8); **erraldoien arteko** (3); **erraldoien aurrean** (3); **erraldoien bidez** (3); **erraldoien gainean** (3); **erraldoien txokoan** (5); **erraldoiren artean** (3); **etxalde erraldoietan** (3); **iruñ manifestazio erraldoien** (4); **txibia erraldoien** (3)

---

erraldoiagotu, erraldoiago(tu), erraldoiagotzen da/du *ad* erraloiago bihurtu.

Galdera haiek, erantzunik gabe, gero eta **erraldoiagotzen** joan zitzaizkion Rekexori bere barruan. Joxemari Iturralde

---

erraldoikara *izond* erraldoien antzekoa.

Zergatik du, Laertes, hire altxamenduak halako itxura **erraldoikara** hartzen? Juan Garzia

---

erraldoikeria *iz* erraldoitasun gaitzesgarria.

Guggenheim museoaren **erraldoikeriaren** itzalpean. Berria - Kultura

Edozein hirik egin behar du aurrera, baina horretarako ez da zertan **erraldoikerian** erori behar. Berria - Kultura

Erraldoikeriak, baina, kaleak hustu ditu, egungo kaleak pasabide hutsak dira. Berria - Kultura

Oraingo Bilbo ez da lehengo hiria; agintariek **erraldoikeriaz** jantzi dute. Berria - Kultura

---

erraldoitasun *iz* erraldoia denaren nolakotasuna.

Zuhaitz horien **erraldoitasuna** sumatzeko nahikoa da gogoratzea bazela horietako bat beheko partean tunel antzeko bat egina zuena, eta tunel horretatik pasatzen zela errepidea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Leku horren **erraldoitasuna** nekez azal daitekeela egiten ditugun argazkien bidez. Berria - Kultura

Ez du biltzar hunek Durangokoaren **erraldoitasunik**, eta ez nahi ere. Herria

Gutxienez, esan dezaket, kanon askorekiko askatasuna erakutsi zidala eta egunerokotasunaren **erraldoitasuna**. Ana Urkiza

Raban, amondarren hiriburuan, dagoen basalto harrizko haren hilobiak erakusten du **erraldoitasun** hori, lau metro eta erdi luze eta bi metro zabal baita, ohiko neurriaren arabera. Elizen arteko biblia

---

erraldoitzar *iz adkor* erraldoi handia

Begira hor, Santxo Panza lagun, non ageri diren hogeita hamarren bat **erraldoitzar**; beroiekin egin behar dut borrokan, eta guzti horiei bizia kendu eta horien hondakinak direla bide, hasiko gara aberasten. Patxi Ezkiaga

Herriko merkatu tradizionalak [...] eta hainbeste saltoki biziki murriztu edo erabat eraitsita, horien ordez, self sistemaz funtzionatzen duten denda eskergak eta *fast food* txarra saltzen duten establezimenduak indartuz doaz, oraingoz: **erraldoitzar** inpertsonal horiek orain pare bat dozena urte ez izatetik egun nagusi izatera igaro dira. Edorta Agirre

---

errale *iz* esalea.

Karlos Zazpigarrena bere tronutik jaitsi, eta eskutan Hostia bedeinkatua zeraman kalonje meza-**erralearen** aurrean jarri da belauniko. Txillardegi

---

erralenti *(orobat **ralenti**)* **1** *iz* motor baten errotazio abiadura minimoa.

Plajiatu, dezibelioak erantsi, bolumena igo eta musikaren magia eta **ralenti** guztia azeleratu. Harkaitz Cano

Semaforo gorrian stop eginda, ibilgailua **ralentian**, udaltzain-autoa ikusi dute eskumatik abian. Urtzi Urrutikoetxea

2 zineman, kamera geldia.

Erralentia, batez ere, asko erabili zuen 1920 inguruko hamarraldiko Europako "arte"-zinemak. Josu Zabaleta

Harrigarria badirudi ere, ordea, **erralentiak** oso balio desberdinak izan ditu, zein testuingurutan erabiltzen zen. Josu Zabaleta

---

erramerran *iz* esamesa.

Konturatu zelarik bere **erramerranek** pentsamendua uhertu zidatela Trabuko irri gurintsu protidiko batez karkazailka urratu zen: [...]. Itxaro Borda

---

erraminta ik **erreminta**.

---

erramintaje ik **erremintaje**.

---

erramolde *(ETCn **37** agerraldi; orobat **erranmolde** ETCn **8** agerraldi)* *iz* esamoldea.

Atsotitzak eta **erramoldeak** piloka bidaltzen dizkit. Gotzon Garate

Euskaldun Fededun, Jainkoak daki zenbat aldiz entzun ahal den, orobat frantsesen "Catholiques et Français" famatuari zor genion euskal herritarrek **erramolde** hori. Piarres Xarriton

Aditz trinko eta **erranmolde** arraro horiek gabe ere ez ote zen berdin ederra izanen? Xipri Arbelbide

---

erramu[1] 1 *iz* abar ebakia, eskuarki ereinotzarena; sorta.

Gero ortozik ibili ginen goizaldean, eta biharamunean gurutzea egingo genuen lizar arramaz, eta galburu eta lorez, **erramua** etxeko atean eskegitzeko. Joseba Sarrionandia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mugimendurik txikiena egitetik zaindu nuen nire burua, baina ez nuen mugitu behar ikusteko, zuhaitzen tartetik, musikako kioskoaren zutabe urdinxkak eta lanpara, eta Velléda, **erramu** multzo baten erdian. Monika Etxebarria

Euskaldunok hemen etxeari teilatua ematean, **erramu**-zarbaz gaina koroatzen diogun bezala, gero **erramu**-afaria egiteko, han, lizarra zizuten horretarako hautatua. Pello Zabala

Norberari hainbat **erramu**-lore botata ere. Anton Garikano

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ondoren aurreskua dantzatu eta lore **erramu** bat eman zioten bertaratutakoek. Palmondo-**erramuak** eta zuhaitz hostotsuen eta erreka-bazterreko sahatsen adarrak eskuetan harturik, Berria - Euskal Herria

4 arrauna.

Hainbat aldiz ikusi ditinat txalupariak **erramuak** erabiltzen, saiatuko naun, heuk egin behar ez badun behintzat, sorgina haiz. Koldo Izagirre

Txalupari biek zutik egiten zuten arraun, gibeletik aitzinerat, **erramu** banarekin, mugimendu motel, single eta dotorez. Koldo Izagirre

'Abantean dena!' deiadar egiten zuen Juan Bautistak, popan zutik, patroiaren **erramuari** eutsirik. Joseba Sarrionandia

5 ***erramutan*** arraunean.

Hamabina urte zituzten eta beldurgarriak ziren **erramutan**, edozein helduk baino arinago zeharkatzen zuten biek ala biek portua alderik alde txalupa hartuta. Koldo Izagirre

-Tira, egin diagu okerrena, utz iezadak orain niri **erramutan**. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erramu baino (4); **erramu baino lehen** (3); **erramu boneta** (3); **erramu eguna** (7); **erramu egunean** (9); **erramu eguneko** (4); **erramu egunez** (3); **erramu igandean** (4); **erramu igandez** (3); **erramu kari** (4); **erramuen benedikatzea** (4); **erramuetan kuku** (3); **erramuko meza** (3); **eta erramu** (11); **igandean erramu** (3)

---

erramu[2] 1 *iz* usain ezaugarrizko hosto iraunkor berde ilunak dituen zuhaitza *(Laurus nobilis)*. ik **ereinotz**.

Haritza gustatzen zitzaidala, Bernardino Grañak aukeratua zuen **erramua** bezala eta Maria Xose Queizanen kamelia ere, eta Avilés de Tamarancoren gereiza eta Uxio Novoneiraren otsalizarra. Berria - Kultura

Jaun erretoreak ebanjelioa kantatu zuen, gero **erramuak** benedikatu zituen eta errepika gisa eman zuen: [...]. Michel Oronoz

Apezak zuloa **erramuz** benedikatu zuen amultsuki, kontseilu orokorraren lehendakariak palatara bat lur bota zion hobian emeki sartzen ari zen kutxari. Itxaro Borda

Lorategi bat ikusi zuen amets artean, zuhaitz eta lorez betea, zedroz eta akaziaz, palmondoz eta **erramuz**, astigarrez eta olibondoz. Felipe Juaristi

Oparitu izan zaizkio **erramuzko** koroa eta arrosak. Anton Garikano

Euskal Herrian, bandera gabe **erramua** edo lizarra paratzen da teilatu amaitu berrian. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Erramu sainduarekin ur benedikatua nasaiki bota zuen exorziztak jendeen gainera, ganbarako xoko-moko guzietara, ohe azpia ahantzi gabe. Michel Oronoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haragia, **erramu** hostoa eta ardoa -dena bere garaian. Anton Garikano

Mahai gainean ezarria zuen ezkoargia pizturik eta haren saihetsean **erramu** hostoila. Daniel Landart

Jantziak eta **erramu**-arbaztak lurrean zabalduz irteten zaizkio bidera, eta esanez: [...]. Patxi Altuna

Denak, gizon, emazte, haur, eliza aitzinean bilduak ziren, metatuak, **erramu** aldaxka bat eskuetan. Michel Oronoz

Kontu handiz, mandolinaz eta **erramu**-abartxoz apaindutako erregalu-papera ez urratzeko ahaleginetan, emazte gazteak oparia irekitzen du. Oskar Arana

Gure inguruan **erramu** sasi haundi bat bezala, ostoak firrist-farrast alderdi guzietan. Michel Oronoz

Izerdiaren ordaina, nekearen saria, ongi eginaren **erramu**-koroa. Xabier Mendiguren Elizegi

Autore baten kanonizazio prozeduran unibertsitateak ematen duen goi mailako **erramu** boneta oso garrantzitsua da, zinezko kontsakrazioa ikonoen beharretan den liburuaren merkatuan. Ana Urkiza

Nehork ez daki zuzen nola gutun hori Baigorriko erretorearen eskuetara heldu zen eta honek, **Erramu** igandean, mezaren artetik, 1791ko apirilaren 17an zen, irakurri zuen. Michel Oronoz

Beraz pentsatzen ahal da Aldudar kotsia bazela **Erramu** egun hortan Baigorriko elizan. Michel Oronoz

---

erramudun *iz* erramua duena sari gisa.

Erramudun *izond* Erramu hostoz koroatua. Xabier Olarra

Erramudun Robert Southey (1774-1843) Ingalaterrako poeta **erramudun** izendatu zuten 1813an. Xabier Olarra

Ingalaterran Poeta **Erramuduna** Erregeren gorteko kargudun izaten da, eta eskeleto dantzari gisa jardun ohi du gorteko edozein festatan eta abeslari mutu gisa errege-hileta guztietan. Xabier Olarra

---

erramukari *adlag ipar* Erramu egunean.

Elizkizun ederrak ukan ditugu **Erramukari**, pentsu dut bide beretik segituko dugula, aste saindu huntan. Herria

Erramukari jendeketa ederra bildu da Elizaldeko plazan eta gero Itsasuko elizan mezarentzat. Herria

Erramukari, meza nagusia Aiherrako elizan 9tan iraganen da. Herria

Apirilaren 13an, aratsaldeko 3ak eta erditan, **Erramukari**, LOTO bat antolatzen dute Jeunes Basques elkarteko kideek. Herria

---

erran *(**17.496** agerraldi, **290** liburu eta **4.188** artikulutan; ETCn **71.548** agerraldi)*, erranen du *ad* esan. *(ikus beheko konbinatorian* erran *hitzaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

agur erran (12); **aintzinetik erran** (8); **aitak erran** (19); **aitak erran zion** (10); **aldiz erran** (12); **amak erran** (21); **amari erran** (10); **anitzetan erran** (12); **arestian erran** (33); **arestian erran bezala** (15); **argi erran** (17); **argiki erran** (9); **aski erran** (8); **atzo erran** (10); **auzapezak erran** (20); **auzapezak erran du** (12); **baietz erran** (39); **baietz erran nion** (8); **baietz erran zion** (8); **baina erran** (26); **bainan erran** (27); **bainan erran behar** (9); **baino gehiagotan erran** (16); **bat erran** (32); **batean erran** (40); **batean erran zidan** (14); **batek erran** (61); **batek erran zidan** (11); **batek erran zuen** (9); **batez erran** (15); **bati erran** (11); **batzuk erran** (8); **behar da erran** (14); **behin erran** (13); **bera erran** (38); **berak erran** (49); **berak erran du** (9); **berehala erran** (16); **berriz ere erran** (11); **berriz erran** (15); **bertze erran** (8); **bertze nonbait erran** (10); **bertzerik erran** (10); **besterik erran** (10); **beti erran** (13); **bi hitz erran** (10); **buruak erran** (9); **da erran** (45); **dagoela erran** (16); **dakit nola erran** (8); **dakit zer erran** (14); **dela erran** (118); **dela erran daiteke** (9); **dela erran du** (28); **dela erran zuen** (25); **den erran** (8); **dena erran** (10); **deplauki erran** (20); **deplauki erran du** (13); **deus erran** (78); **deus erran gabe** (25); **deus erran nahi** (13); **deusik erran** (39); **deusik erran gabe** (10); **dezagun erran** (8); **dio erran** (9); **dira erran** (14); **dira erran eta** (8); **direla erran** (45); **direla erran du** (8); **direla erran zuen** (8); **dituela erran** (9); **dizut erran** (16); **du deus erran** (9); **du erran** (85); **du erran nahi** (62); **duela erran** (54); **duela erran du** (18); **duela erran zuen** (8); **dugu erran** (13); **dugun erran** (18); **dut erran** (29); **dutela erran** (20); **edo erran** (14); **edo hobeki erran** (28); **egia erran** (821); **egia erran bainan** (10); **egia erran ez** (25); **egun batean erran** (17); **ek erran** (17); **ere erran** (119); **ere erran behar** (12); **ere erran du** (10); **ere erran nahi** (9); **ere zerbait erran** (17)

erran ahal (10); **erran bainan** (17); **erran baitu** (9); **erran baitzidan** (33); **erran baitzuen** (27); **erran behar** (632); **erran behar da** (372); **erran behar dizut** (14); **erran behar dugu** (30); **erran behar dut** (43); **erran behar eta** (8); **erran behar izan** (12); **erran behar ote** (17); **erran beharko** (37); **erran beharko ote** (9); **erran beharra** (9); **erran beharrik** (16); **erran berri** (26); **erran bezain** (10); **erran bezala** (172); **erran da** (18); **erran daiteke** (80); **erran dauku** (44); **erran daukunaz** (18); **erran daukute** (16); **erran daut** (16); **erran dautzut** (8); **erran dezagun** (70); **erran dezake** (14); **erran dezakegu** (26); **erran dezaket** (48); **erran diat** (11); **erran didanez** (9); **erran didate** (16); **erran didazu** (8); **erran die** (15); **erran diezazuket** (21); **erran diezazuket ezen** (8); **erran digu** (20); **erran digute** (12); **erran dik** (11); **erran dio** (39); **erran diot** (19); **erran diote** (31); **erran dit** (84); **erran ditaike** (19); **erran ditake** (62); **erran ditu** (9); **erran dizu** (13); **erran dizudan** (44); **erran dizudan bezala** (41); **erran dizut** (63); **erran dizut ezen** (16); **erran dizut nola** (13); **erran du** (476); **erran du ere** (12); **erran du ez** (14); **erran dudan** (17); **erran dudan bezala** (12); **erran duen** (46); **erran duen bezala** (29); **erran duena** (15); **erran duenaren** (8); **erran duenaz** (12); **erran duenez** (13); **erran dugu** (27); **erran dugun** (25); **erran dugun bezala** (22); **erran dut** (86); **erran dutan** (8); **erran dute** (150); **erran duten** (14); **erran dutenaz** (18); **erran dutenez** (8); **erran duzu** (26); **erran edo** (9); **erran ere** (45); **erran eta** (144); **erran eta egin** (8); **erran eta erran** (63); **erran ez** (81); **erran gabe** (257); **erran gabe doa** (141); **erran genezake** (18); **erran ginezake** (16); **erran ginuen** (11); **erran haatik** (11); **erran hori** (12); **erran hura** (17); **erran izan** (38); **erran lezake** (8); **erran liteke** (12); **erran merran** (9); **erran merranak** (15); **erran nahi** (1297); **erran nahi baita** (499); **erran nahi baitu** (32); **erran nahi baitut** (23); **erran nahi da** (40); **erran nahi du** (196); **erran nahi duela** (12); **erran nahi duen** (15); **erran nahi dut** (60); **erran nahi duzu** (23); **erran nahi izan** (20); **erran nahi ote** (15); **erran nahi zuen** (25); **erran nahia** (19); **erran nahiko** (14); **erran nezake** (67); **erran nien** (22); **erran nion** (264); **erran nion neure** (12); **erran nizun** (19); **erran nola** (8); **erran nuen** (76); **erran ohi** (12); **erran omen** (27); **erran omen zuen** (9); **erran oraino** (9); **erran orduko** (16); **erran ote** (11); **erran tenorean** (9); **erran zahar** (36); **erran zaharra** (54); **erran zaharrak** (26); **erran zautan** (12); **erran zenidan** (22); **erran zer** (14); **erran zidaan** (10); **erran zidan** (531); **erran zidan aitak** (14); **erran zidaten** (17); **erran zien** (81); **erran zigun** (87); **erran ziguten** (17); **erran zion** (341); **erran zion mikelek** (9); **erran zion osabak** (8); **erran zioten** (26); **erran zitekeen** (21); **erran zituen** (16); **erran zizkidan** (10); **erran zuela** (10); **erran zuen** (787); **erran zuen aitak** (12); **erran zuen amak** (9); **erran zuen atzo** (13); **erran zuen azkenean** (8); **erran zuen bezala** (15); **erran zuena** (17); **erran zuenez** (10); **erran zuten** (63)

erranak erran (9); **eskolioan erran** (8); **eta egia erran** (9); **eta erran** (383); **eta erran behar** (13); **eta erran dezaket** (9); **eta erran nion** (14); **eta erran zidan** (33); **eta erran zigun** (13); **eta erran zion** (27); **eta erran zuen** (37); **eta garbi erran** (36); **eta gero erran** (16); **eta hala erran** (16); **eta horrek erran** (8); **eta orduan erran** (15); **eta osabak erran** (8); **eta segidan erran** (11); **eta zer erran** (38); **ez dizut erran** (13); **ez du erran** (73); **ez duela erran** (8); **ez dut erran** (16); **ez erran** (50); **ez zuen erran** (8); **ezer erran** (14); **ezetz erran** (41); **ezin da erran** (12); **ezin erran** (115); **fitsik erran** (9); **gabe erran** (27); **garbi erran** (44); **garbi erran du** (15); **garbi erran zuen** (10); **garbiki erran** (34); **garbiki erran du** (17); **gauza bera erran** (31); **gauza erran** (14); **gehiago erran** (14); **gehiagotan erran** (16); **gero erran** (21); **gero erran zidan** (8); **gezurra erran** (17); **haatik erran** (8); **haiek erran** (16); **hala erran** (64); **hala erran dute** (10); **halaxe erran** (21); **hark erran** (19); **hau ere erran** (9); **hau erran** (15); **hauxe erran** (15); **hemen erran** (8); **hitz bat erran** (12); **hitz erran** (15); **hitz haiek erran** (8); **hitzak erran** (8); **hitzik erran** (28); **hitzik erran gabe** (20); **hobeki erran** (61); **holakorik erran** (11); **honek erran** (9); **hori erran** (50); **horiek erran** (10); **horra zer erran** (10); **horrek erran** (157); **horrek erran nahi** (152); **horrek zer erran** (10); **hunek erran** (11); **hura erran** (29); **ja erran** (11); **jadanik erran** (18); **jaunak erran** (12); **joanikotek erran** (9); **k erran** (12); **kapitainak erran** (8); **kasik erran** (9); **lehen erran** (10); **ministroak erran** (10); **ministroak erran du** (8); **nagusiak erran** (11); **nehork ezin erran** (39); **nekien zer erran** (10); **nik erran** (31); **noiz eta erran** (12); **nola erran** (60); **nonbait erran** (13); **nonbait erran dizudan** (10); **norbaitek erran** (19); **nork erran** (37); **nuela erran** (9); **ondotik erran** (9); **ongi erran** (8); **orduan erran** (34); **orduan erran nion** (10); **orduan erran zidan** (8); **osaba joanikotek erran** (9); **osabak erran** (25); **osabak erran zidan** (11); **segidan erran** (15); **zegoela erran** (8); **zela erran** (52); **zela erran zuen** (8); **zen erran** (10); **zer erran** (375); **zer erran behar** (15); **zer erran duen** (8); **zer erran nahi** (88); **zera erran** (11); **zerbait erran** (89); **zerbait erran behar** (13); **zerbait erran nahi** (43); **zirela erran** (24); **ziren erran** (9); **zuela erran** (20); **zuen deus erran** (8); **zuen erran** (15); **zutela erran** (11)

aski errana (8); **batere errana** (11); **behin errana** (10); **berak errana** (8); **betiko errana** (11); **da errana** (23); **ere errana** (14); **errana da** (48); **errana den** (12); **errana den bezala** (11); **errana du** (25); **errana dugu** (27); **errana dugun** (23); **errana dugun bezala** (21); **errana dut** (9); **errana dute** (12); **errana eta** (8); **errana ez** (8); **errana ginuen** (11); **errana izan** (82); **errana izan da** (40); **errana izan den** (10); **errana naiz** (13); **errana zidan** (8); **errana zuen** (30); **errana zuten** (23); **errana zuten bezala** (9); **erranak erran** (9); **erranak eta** (13); **erranaren arabera** (13); **eta errana** (8); **ez da errana** (22); **garbiki errana** (8); **gehexan pontto errana** (32); **ja errana** (19); **jada errana** (11); **jadanik errana** (20); **muslaria errana** (45); **pontto errana** (32); **s muslaria errana** (45)

aski erranik (8); **bainan erranez** (10); **dela erranen** (11); **dela erranez** (11); **du erranez** (12); **dut erranen** (8); **egia erranen** (10); **egia erranen dizut** (8); **ere erranen** (13); **erranen arabera** (10); **erranen dautzut** (21); **erranen dauzut** (8); **erranen diat** (14); **erranen diot** (8); **erranen dizuet** (8); **erranen dizut** (59); **erranen dizut ezen** (8); **erranen du** (48); **erranen dugu** (27); **erranen dut** (52); **erranen dute** (34); **erranen duzu** (9); **erranen ez** (8); **erranen nion** (8); **erranen nuke** (27); **erranen zuen** (45); **erranez bere** (10); **erranez ere** (9); **erranez ez** (38); **erranez ez dela** (8); **erranez ezen** (9); **erranez haatik** (10); **erranez nola** (8); **erranik ere** (22); **erranik ez** (17); **eta erranen** (25); **eta erranez** (9); **ez dut erranen** (8); **ezetz erranen** (10); **ezin erranezko** (19); **gehiago erranen** (10); **geroak erranen** (39); **geroak erranen du** (14); **hori geroak erranen** (8); **nik erranen** (9); **nork erranen** (60); **nork erranen du** (9); **nork erranen zuen** (39); **zer erranen** (53); **zer erranik** (31); **zer erranik ez** (13)

bestela errateko (20); **da erratea** (9); **dela erraten** (23); **deus erraten** (10); **dut erraten** (10); **edo hobeki errateko** (8); **egia errateko** (10); **egiaren errateko** (8); **ere erraten** (13); **erraten ahal** (40); **erraten ahalko** (9); **erraten ari** (16); **erraten da** (74); **erraten den** (29); **erraten den bezala** (22); **erraten dio** (12); **erraten dit** (9); **erraten du** (42); **erraten duen** (18); **erraten duena** (8); **erraten dugu** (14); **erraten dut** (39); **erraten dute** (24); **erraten duten** (10); **erraten eta** (8); **erraten ez** (9); **erraten nion** (10); **erraten zen** (10); **erraten zidan** (26); **erraten zion** (25); **erraten zioten** (13); **erraten zuen** (12); **erraten zuten** (9); **ez dut erraten** (8); **hala erraten** (10); **hobeki errateko** (12); **hori erraten** (14); **nolabait errateko** (19); **zer erraten** (21); **zerbait erraten** (11); **zuri erratea** (10); **zuri errateko** (9)

---

erranahi *(63 agerraldi, 16 liburu eta 20 artikulutan; ETCn 258 agerraldi)* **1** *iz* esanahia.

Bekaizkeriari Urrikalmendua kontrajartzen zaio komunzki, zeina, honenbestez, eta hitzaren **erranahia** gorabehera, honela defini baitaiteke: [...]. Piarres Xarriton

Hitzek gauzen **erranahia** adierazten badute, argazkiek finkatzen laguntzen dute. Herria

Hitz berak bi **erranahi** izaten ditu batzuetan. Jon Muñoz

Manifestazio honek beste **erranahi** bat ukan behar du. Berria - Euskal Herria

'Gueilo' hitzak bi **erranahi** dauzka: "deabrua" eta... "gizon xuria". Ramuntxo Etxeberri

Mikelek esplikatu zion beraz bere alabari hitz horren **erranahia**. Ramuntxo Etxeberri

Etxea etxe da, eta amorioa amorio, eta lehen behakoan edo objektuak eragiten digun lehen ukitu guztizkoan agortzen zaigu hitzen **erranahia**. Joan Mari Irigoien

Zure pertsonaiaren bidaiaren **erranahia** geroxago asmatzen ahalko duzu! Ramuntxo Etxeberri

Oraindik ez nekien zuzen haren **erranahia**. Aingeru Epaltza

Erran behar dizut ezen zure memoriak baino areago harritu eta zurtu ninduela aipu eta anekdota haien lotzeko erakutsi zenuen antzeak eta trebetasunak, zeren, hainbertze pilatu eta juntatu arren, ez baitzirudien bihirik ere soberan zegoela, bakoitzak baitzuen han bere intentzionea eta **erranahia**, bere tokia eta bere lekua. Joan Mari Irigoien

Elkar ezagutzen ez duten jendeen arteko jestu horiek, ebaska bezala eginak direlarik, badukete, ez idurian, adiera sakon zerbait, senditzen den **erranahi** bat, analisatu nahi ez dudana funtsean. Piarres Aintziart

Nire begiradaren **erranahiaz** tronpaturik. Alberto Ladron Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Tolerantzia hitz malguegia da, ez du **erranahi** argia. Berria - Euskal Herria

Adimendua zorroztu beharra zegoela, ipuin haien **erranahi** gordearen ulertzeko eta endelegatzeko. Joan Mari Irigoien

Batzuetan, Peiok eskua finkiago tinkatzen zion, baina medikuen ustez, horrek ez zuen baitezpada **erranahi** zehatzik. Ramuntxo Etxeberri

Krasnodar hiriak, gainera, **erranahi** berezia du beretzat. Berria - Kirola

Geroztik, ikusmoldea aldatu zaidala, zeren eta pertsona baten eginak eta ekinak zentzuz aldatzen baitira eta **erranahi** berezia hartzen, noiz eta bertze pertsona batez amorosten den, nola izan baitzen amaren kasua. Joan Mari Irigoien

Bi koloreen **erranahi** sinbolikoa mendeetan, haien aldaketak, ororen berri daki. Xabier Montoia

Janzkera haren **erranahi** ilunak are beldur handiagoa eman zidan. Alberto Ladron Arana

Tribua moldatzen dugula azpimarratzen dut, mundu zibilizatu honek antolaketa sozial hori preseski gaitzesten duenean, tribalizazioa **erranahi** negatiboaz apainduz: globalizatzen gaituen kontsumo gizartearen aurka doa irudiz tribua. Itxaro Borda

Gero, berriz, irri etsi bat egin zion... bere **erranahi** ezkutua izan zezakeena. Joan Mari Irigoien

Makurrez lagunak Luixa edo Tehexa deitzean, Agatak imajinatzen zuen nekeziaz troxatu haurtzaro triste eta hitsa jazartzen zitzaiela, bestela izen batek ez zuelako horrelako **erranahi** ezkorrik. Itxaro Borda

Aitak osabari egin irri hura **erranahi** bikoitzekoa, izan zitekeelako. Joan Mari Irigoien

Joanesen kasuan, bai, erraiten ahal dela -lehen **erranahian** eta **erranahi** itxuratuan- gerla egina zuela Eta haren oinazeen hastapena baizik ez zen. Eneko Bidegain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere erranahi (3); **bere erranahia** (3); **bi erranahi** (3); **erranahi bat** (3); **erranahi berezia** (4); **horren erranahia** (3)

---

erranahitsu *izond* esanahitsua.

Zeren Irundik Urbainerat egin nuen bertze bidaia hura Indietarikoa baino laburragoa gertatu baitzitzaidan, bistan da, baina baita beteagoa eta **erranahitsuagoa** ere. Joan Mari Irigoien

Eta ez ote dira artezagoak eta xuxenagoak, baita **erranahitsuagoak** ere, hainbatetan, zeren eta keinuak, hitzak jaso ezin dituen ñabardurak izan baititzake, pertsonaren historiarekin eta haren izatasunarekin lotuak, pertsona bakoitzak bere keinuak dituelako eta bere keinuen adierazteko modua eta manera? Joan Mari Irigoien

---

erranairu *iz* esaera zaharra.

Alfredo Asiain proiektuaren zuzendaria harremanetan dago jada Nafarroan bizi diren etorkinen elkarteekin, haien kantak, esaerak, **erranairuak** eta sinesmenen inguruko material guztia biltzeko. Berria - Harian

Denentzako tokiek, esaldi eginek, makulu-hitzek, betegarriek, almanaketako atsotitzek, esaera zaharrek eta **erranairuek**, denek eduki dezakete berri-itxura, horretarako horien aurrean eta horien atzean dauden hitzak egoki erabiltzea da baldintza bakarra. Jon Alonso

Arreta falta horregatik arraza horrekin behin-betikoz bukatzeko aukera galdu baitzuen, Etsaia barkatzen duena bere eskutik hilko da gaztigatzen duen **erranairuaren** aholku onari jaramonik egin gabe. Jon Alonso

Simeon ben Yohay-k esan omen zuen **erranairua**. Xabier Kintana

Beste aipu bat gogoratu beharko zuen, **erranairu** zahar bat, Eroriari, ostikoz, esaera trinko eta sarkorra. Jon Alonso

Halabeharrak nahi izan zuen, edo beharbada zoritxarrak, hitz uniboko hauek lerro bakarrean elkar zitezen, modu honetan legenda baten indarrarekin aurkezten direlarik, distiko bat bezalakoak dira, **erranairu** erantzunezina bezalakoak. Jon Alonso

---

erranaldi **1** *iz* esaldia.

Honelatsu itzuli nion euskaraz ene irakasleari bere **erranaldia**: "Bakoitza Gizartearentzat, Gizartea Presonarentzat". Piarres Xarriton

Hori egin eta gero, barnera utzi zuten pasatzera, doinu gabeko 'good luck' **erranaldia** ahoskatuz. Ramuntxo Etxeberri

Ez zuen bere **erranaldia** bururatzeko astirik ukan. Ramuntxo Etxeberri

Bere inguruko neska maiteminduen **erranaldiak** ez zituen ulertzen. Ramuntxo Etxeberri

Enetzat, erretorika, solasaldiaren eraikuntza da: hitzetik hasi eta **erranaldiaren** sintaxi konplexuraino, zatiraino hedatuz, zatien arteko juntetaraino eta liburuaren arkitektura osoraino zabaltzen dena. Ana Urkiza

Gogoan duda bat bezala sortzen zaigu beste **erranaldi** hau irakurtzean: [...]. Xipri Arbelbide

Bi perpaus dütü, bi frasa edo **erranaldi**, bi neurtitz edo "vers". Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Besterik ez zuten erran, holakoetan **erranaldi** patetikoak debalde dira. Michel Oronoz

Eta badugu oraino Baldusen beste **erranaldi** bereziago hau: Ez baldin bada itxaropenik buruzagiak zain dezan hiria edo hura ez baldin bada horren egiteko prest, hiria menperatzen ahal zaio beste bati, [...]. Piarres Xarriton

Iparraldeko politikari ainitzek ihardoki dute, bakoitzak bere kolore bereziarekin, "persona non grata" latinezko **erranaldi** berexle horren kontra, hitz horien azpian suma daitezkeen xenofobia sentimenduen sustatzea leporatuz abertzaleei. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere erranaldia (4); **erranaldi bat** (3)

---

erranarazi, erranaraz, erranarazten du *ad* esanarazi.

Zenbat erokeria ez ote nion **erranarazi**. Jon Muñoz

Kausa horiek guztiek bildurik malkoak sorrarazi ahal izan dizkidate eta **erranarazi**, neure ustez arrazoiz, dohakabea nintzela. Jon Muñoz

Ez dago hori frogatzen duen dokumenturik, ez bada inkisidoreak torturapean **erranarazi** zutena. Berria - Kultura

Soil-soilki zure bihotza neurriz gain ari da zure adimenaz baliatzen, eta arrazoi txarrak **erranarazten** dizkio. Jon Muñoz

Gallia hura eta biziki berantago agertu zen Frantzia ez zirela batere gauza bera, nolaz ote, gezurrezko Gallia haren ordez, ez ziguten garbiki **erranarazten**: *Domine salvum fac Philippum ducem,* "Jauna, salba ezazu, otoi, Filipe gure aitzindari maitea!". Piarres Xarriton

Jendeek mezak-eta **erranarazten** dizkigute kasik eta egun oroz, beraz jada, gure soldata badugu eta jendeek ematen duten diruaren arabera bizitzekoa badugu. Menane Oxandabaratz

---

erranbide *iz ipar* esapidea.

De Gaulle-n kontra joaiteko Giscard d'Estaing-ek sortu zuen **erranbide** pollita: "Bai, bainan...". Herria

Sakelan beti deramat liburuxka bat, eta bazterretxetarrekin egin solasetan entzuten badut zerbait itzuli edo **erranbide**, edo aditza molde zahar bat, paperrean ezartzen ditut; oharpen ainitz baditut bilduak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

erranezin *izond* esanezina.

Malenkonia **erranezin** batek hartzen nau hartaz oroitzean: batzuetan gauak eta gauak eman ditut iraganbide eta harri leunduzko eskaileretan zehar liburuzain bakarrik ere topatzeke. Juan Garzia

Iritsia naiz, hona, nire kontakizunaren muin **erranezinera**; hemen hasten da nire idazle-etsipena. Juan Garzia

Eta, bertze anitzetan bezala, berdintsu eta orobatsu galdetzen dizut orain berean ere: nola erran **erranezina**, jaun André...? Joan Mari Irigoien

Bena nor da egun elebidun? Frantsesa eta euskara nahas-mahas **erranezinezko** nahaste-borrastean derabiltzana? Herria

---

erranguratsu *izond* esanguratsua.

Inkestetan gezurra erratea erraza izanagatik ere, euskararik batere ez dakiten gipuzkoar, bizkaitar eta arabarren ia erdiek finalaren berri izan zutela jakitea bada nahiko datu **erranguratsua**. Berria - Kultura

---

erranka *adlag* esanez.

S.S. bati **erranka** hasten zaio ez duela holako "galeriano soinekorik jantziko. Marzel Etxehandi

"Izenik ere ez duen hilotz arraio batengatik" lan egiten uzten ez zioten kazetariez gaizki **erranka** gaitzitu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Eta gaitz-**erranka** aritu zituan, aitaren asmoak gibelasmoak ez ote ziren... Joan Mari Irigoien

Nonbait ene fribolitatea ez zitzaion gustatu Roberti eta zer nahi **erranka** hasi zitzaidan. Itxaro Borda

Dena erasia, zernahi **erranka** arizan da Juan Jose Ibarretxe lehendakariak joanden egunean egin dituen proposamenen kontra! Herria

Edo haserretuak, elkarri zernahi **erranka**? Janbattitt Dirassar

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
gaizki erranka (3); **zernahi erranka** (3)

---

errankizun *iz* esankizuna.

Aspaldiko **errankizunak** aurten ere izan du entzule! Herria

---

errankomun *iz* esapidea.

Errankomun baten arabera, sekula ez omen zuen azterketetan galderarik egin; gaiaren edozein alderdi aukeratu eta hartaz jardutera gonbidatzen zituen ikasleak. Juan Garzia

Johnson doktorearen zentzu ona **errankomunik** arruntenez osatua da. Juan Garzia

---

erranmolde ik **erramolde**.

---

errantxe

1 ***errantxeak izan*** *adkor* esan berriak izan.

Denak, laudorioak bereziki **errantxeak** dira Iparraldeko hiri nagusiko besta horietaz. Herria

Guk ere **errantxeak** bide ditugu erran behar ditugunak. Menane Oxandabaratz

---

errantxo ik **arrantxo**[1].

---

errape *(ETCn **309** agerraldi)* **1** *iz* animalien, eskuarki abereen, emearen ugatzetako bakoitza.

Ziklopeak artaldeko harrak belazera atera zituen, emeak kexuka baitzeuden, jeitzi gabe, **errapeak** esnez bete-beterik. Juan Kruz Igerabide

Beote baserriko behi batek kilima zeukaan; beste hitzetan esanda, **errapeak** minbera zitian eta ez zian erraz iraina eraisten. ez botikarik ez hormonarik ez diote ematen aratxeari, eta lau hilabete bete arte, amaren **errapetik** hartzen du esnea. Xabier Etxabe

Gero **errapeetatik** edaten zioten esne epela behiari, azkar baita ere. Eider Rodriguez

Aratxe gosetuak garraiatzen zituztenean eta trena nire geltokian geldirik egoten zenean, bagoiko ate erdi irekitik behatzak eskaintzen nizkien une batez behinik behin **errapeko** titiburuena egin zezaten. Fernando Rey

Aittittek esku batez eraisten zuen esnea, behiaren **errapeko** lau erroak bere eskuko bost hatzez sakatzen zituen eta esne zorrotadak kantinan metal hotsa egiten zuen. Joseba Sarrionandia

Ardiak agalaxia, ikara, scrapiea, harrak buruan edo **errapeetako** mina dutenean. Itxaro Borda

Bildotsek hauteman dituzte ñabardurak, izan ere, nahastu gabe, bakoitza bere amaren **errapera** joan baita zuzenean. Itziar Otegi

Larre eta soro berdeak zingira bilakatuta, eta behiak **errapeetaraino** hondoratuta, marruka. Alberto Barandiaren

Manex motakoek, hobekuntza genetikoa dela medio, **errapeak** handiagoak dituztela entzuna dut nonbait eta makina zurrungatsuz deizten ahal direla. Itxaro Borda

Errapeko bildots eta axuriak ere baditut.

2001eko irailaren 11n, George W. Bush, AEBetako presidenteak [...], *cowboy* hitza ostera ere bere esparru etimologiko hertsira ekarri eta Asiako behi sakratuenei **errapeak** ondo husteagatik historiara pasako zen presidenteak, haur-eskola batean jakin zuen Dorre Bikien aurkako erasoen berria. Harkaitz Cano

2 (izenondoekin)

Laborari bati entzuna diogu “behi uxterra” erraiten dela **errape** goxoa duen batentzat, eskuz deizteko erretxa delarik. Herria

Ahuntz polit batzuk, Murtziakoak edo, **errape** txikikoak, ez urratzeko larretan... Pablo Sastre

Hortik eratzaten dituzte abereek euren gorputzak larre alaietan, gizenez astundurik, eta esne zuria erioten **errape** handituetatik. Xabier Amuriza

3 irud/hed

Hondartza publikoetan bularrak agerian (**'errapeak'**, esaten die berak) dabiltzan turistak iraingarri zaizkio. Oskar Arana

Galdera hori egitearekin batera, eskoteko azken botoiak askatu eta bularretakoa kendu zuen, sekulako **errapeak** utziz agerian. Jon Arretxe

Aireplano hauek lehergailu itzelak zekartzaten, **errapearen** moduko sabelpetik zintzilik. Joseba Sarrionandia

Zeren berdin edan baitzezakeen nola bizioak bertutearen **errapeetarik** hala bertuteak bizioenetarik. Joan Mari Irigoien

4 (hitz elkartuetan)

Ardi **errape** laburretan lerratzen, eskuak agudo akitzen zitzaizkigun. Itxaro Borda

Eskoziar ikertzaile batzuek jakitera eman berri dute lortu dutela halakorik: ardi-arrautza gunegabetu batean ardi **errapeko** zelula baten gunea txertatu, eta bildotsak sortu dira. Juan Garzia

· Ekaitz-hodei beltzaren **errape**-azpi ilun arre horretan. Pello Zabala

---

errapeanitz *izond* errape anitz dituena.

Eguzkiak loria betean hedatzen zuen bere erregetza ortzi-muga **errapeanitzaren** gainean. Xabier Olarra

---

errapeka *adlag* ugari.

Bi nabalek, eta Josuren soin eroritik **errapeka** zerion odolak. Aingeru Epaltza

Hala bada, oso entzutetsua gertatu zen soldaduen artean eta **errapeka** etorri zitzaion dirua. Patxi Zubizarreta

---

errapide ik **errepide**.

---

erraposki *adlag* **

Alta hauk beti gibeletik segitu dira **erraposkiago** hasia gatik: 12-3, 20-12, 25-17, 30-25 eta!... Herria

---

errari 1 *izond* ibildauna, alderraia, noragabe dabilena.

Ashaverusek, Judu **Errariak** eman zidan aholkua. Iban Zaldua

Alargun beroen amorante eta arriskuan zeuden damatxoak salbatzen zituen zaldun **errari** bihurturik. Oskar Arana

Eremita batek edo fraile **errariak** utzi litzake ile bizarrak nahi adina luze eta zikin, jainkoagana luzatzen baitzaizkio beti. Patziku Perurena

Elurteak baino lehen agertzen diren txori **errarien** moduan datozkie haren seinaleak. Edorta Jimenez

Hegazti **errarien** garaia izanen da. Hasier Etxeberria

Iratzargailuaren bila saiatu zen itsumustuan, beso **errariarekin** han eta hemen joz. Unai Iturriaga

Irudimen **errari** eta kaskarina. Juan Martin Elexpuru

Munduak bere betiko traiektoria berreskuratu aurretiko eten une horretan sortzen dira arima **errariak** eta mamuak. Harkaitz Cano

Ama arima **erraria** da kasik, eta altzarien oinarrien aurka tupust egiten du, arranoa!, nork jarri du altzari hau hemen. Lander Garro

Behin hiztegi bat zabaltzen denean, ixtea ez da samurra izaten, gure gogo **erraria** aspertu egiten baita gai bakarra hartu eta etengabe hari buruz pentsatzen. Bernardo Atxaga

Hankak mahai azpian luzaturik, tabernako leihotik begira, gizon-emakumeen silueta **errariak** pasatzen. Eider Rodriguez

Horregatik ikusten dugu auzitegi berdinak modu ezberdinean zigortzen dituela delitu berdinak garai ezberdinean, ez zaiolako kasu egiten legearen ahots aldagaitz eta tinkoari, interpretazioen gorabehera **errariei** baizik. Juan Martin Elexpuru

2 (adizlagun gisa)

Erranak erran, aspaldi ez dela, belaontzia kapitainik gabe noraezean **errari** ikusi duela dioen arrantzalerik ere bada Antilletako uharteetan. Harkaitz Cano

Bisaiarik gabeko Eztarri Sakona, bere auto beltzean herrialdez herrialde eta mendez mende zebilena, kalesan eternitate guztia **errari** ibiltzera kondenatutako pertsonaia antzinakoaren eran. Harkaitz Cano

Berriro ere lainoz laino zebilen nire gogoa, inoiz baino **errariago**, ideia batetik oroitzapen urrun batera joanez. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arima erraria** (3); **hegazti errarien** (3)

---

erraritasun *iz* erraria denaren nolakotasuna.

Groenlandiaren berri jaso nahi nuen nik hiztegitik; baina, aurreneko hamar lerroak kopiatu eta gero, eta arestian aipatutako gogo-**erraritasunagatik**, helburu hura ahaztu eta Groenlandia ondoren zetorrena irakurri nuen. Bernardo Atxaga

---

errata *iz* huts tipografikoa.

Asteasuko Agirreren "Platicac" liburuaren lehen ediziotik hartutako **erratak** dira. Iñaki Arranz

Errata tipografikorik behinena, ordea, Frai Bartolomeri irakurria diogu, hau ere liburuaren lehen argitaraldian. Iñaki Arranz

---

errate *iz* esatea.

Errate hutsak zimiko eragin dio bihotzean. Aingeru Epaltza

Errate baterako, Udalak debekatu zituen sanferminetako txosnak gaztetxean paratu dituzte azken bi urteetan. Berria - Euskal Herria

---

erratiko *iz* norabiderik gabekoa.

Aurelia Arkotxaren erudizioaz (abenturosa eta are **erratikoa** ere denaz) froga franko banuen. Aurelia Arkotxa

Ezker tradizioak eta nazionalismoak zerikusirik ez dutela esan zuen eta, horren ondorioz, Maragallen jokabidea **erratikoa** izan dela, ez dagoelarik argi ala sozialista ala nazionalista den. Berria - Euskal Herria

---

erratilu ik **erretilu**.

---

erratio ik **ratio**.

---

erratu, erra(tu), erratzen *(ETCn **1.989** agerraldi)* 1 du *ad* huts egin, ez asmatu.

Beti egiaren bila dabilenak hura aurkitu ez arren ez duela **erratzen**. Imanol Unzurrunzaga

Definizio matematikoek ez dute inoiz **erratzen**. Ibon Uribarri

Definizio analitikoek, ordea, era ezberdinetan **erra** dezakete. Ibon Uribarri

Norbaiti etsia edo etsipena eman badiote, eta ez badu jaun medikuak bere hitzean asko **erratu**, uste izateko da luza gabe norbait horren hurkoei doluminak eman beharrean aurkituko direla bat baino gehiago. Iñaki Segurola

Ez dut uste gehiegi **erratuko** nukeenik delako etsai hori Nafarroako Gobernua dela baldin badiot. Iñaki Segurola

Ibaizabal izenarekin ere bete-betean **erratu** nuen, ez baitu ezin sinetsizkotik deus ere. Iñaki Segurola

Zuzenki esan daiteke sentsuek ez dutela **erratzen**, baina ez beti zuzenki juzgatzen dutelako, baizik inolaz ere ez dutelako juzgatzen. Ibon Uribarri

Ez nituen kalkuluak **erratu**, ez nuen hura guztia alferrik pairatu. Koro Navarro

Harrapaka etxeratu nintzen, ibilbidea behin baino gehiagotan **erratuz**. Javi Cillero

Kokalekuak hor daude; haiek betetzea besterik ez da geratzen, eta halako topika sistematikoak adigai bakoitzari propioki dagokion kokapena **erratzea** zailtzen du. Ibon Uribarri

Matematikariaren inferentzia oro kontraesanaren oinarri-esakunearen arabera gertatzen dela aurkitu zenez gero (ziurtasun apodiktikoaren izaerak eskatzen duena), orduan oinarri-esakuneak ere kontraesanaren esakunetik abiatuta ezagutzen direla uste izan zen; eta horretan **erratzen** zuten. Ibon Uribarri

Ze **erratzea** nik egin dezakedana zerbait da, baina heretiko izatea ez, zeren lehena adimenari dagokio eta bigarrena nahimenari. Joan Mari Lekuona

• **2** da *ad*

Gizakiak gara eta denok **erratzen** gara, eta ni naiz lehenengoa **erratu** naizena. Berria - Kirola

Ez dut uste larregi **erratzen** naizenik hemen oso gaizki dagoela esaten badut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eztabaidetan gogor arriskatu eta busti zenez, sarritan **erratu** zen. Markos Zapiain

-Ez hadi **erratu**, Roberto. Harkaitz Cano

Berriro **erratu** naiz: hau ez da bakea eta patxada maite dituzten alargun horietakoa. Koldo Izagirre

Erratu ote nintzen ere pentsatu nuen, kanoikada hura Armada abiatzeko seinalea barik beste edozer ez ote zen. Edorta Jimenez

Kontatzen ere ez zekien, eta hala eta guztiz ere ez ei zen egungo arrautza bat gora edo behera, ogerlekoren bat gora edo behera **erratu**. Edorta Jimenez

Neska, zu zeu eta zure adiskideak zaudeten egoeran ikusita, ez dut uste larregi **erratzen** naizenik hemen oso gaizki dagoela esaten badut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erlijio katolikoak, esaterako, aitasantua ez daitekeela **erratu** dio. Joxerra Garzia

Honela txakurrak maiz **erratzen** dira eta oinatz bila dihardute. Xabier Amuriza

PPko idazkari nagusi Angel Acebesen iritziz, «errotik **erratu** dira» kale erasoak «gutxiesten» dituztenak. Berria - Euskal Herria

-Urrea besterik ez zuten bilatzen, horretan **erratu** ziren. Xabier Aranburu

Horregatik esan liteke gauza honetan **erratu** egin zela Piteo, ez baitzen konturatu arte bakoitza bi partez osatua egoten dela: esperientzia batetik, eta horri buruzko arrazoiketa bestetik. Santiago Iruretagoiena

Orduan jakin nuen huts egin niola, zehazki zertan **erratu** nintzen jakin gabe eta hark zer hori zer zen ezin azalduta! ene ustez behar beharrezkoak ditugu bidean **erratu** zarela ikusi duzun horren hitzak. Xabier Paya

Bai, hala izango da, beste norbaitekin **erratuko** zen. Xabier Paya

Hasieran izenekin ere **erratu** egiten zara. Berria - Kirola

Une batez zenbakira begiratu nuen gora, atez **erratu** ote nintzen ikusteko. Urtzi Urrutikoetxea

Zakutoaren estalkiaren azpikoari begiratu ostean gizon gizonduenen modura hasi zen madarikazioka eta biraoka, ez zegoela sinisterik baina fardelez **erratu** zela. Josu Landa

3 (era burutua izenondo gisa)

Misil hiper-zehatzak omen direnak erabiltzen ditizten, helburu militarrak kolpatu behar lituzketenak eta behin eta berriroko kalkulu **erratuak** direla medio ehunka zibil akabatzen dituztenak. Harkaitz Cano

Beharrezkoa izango da, beraz, adimenaren ekintza propioa tartekatzen den indarretik bereiztearren, judizio **erratua** judizioa bi norabideen arabera determinatzen duten bi indarren arteko diagonaltzat hartzea. Ibon Uribarri

Iraultza **erratu** baten alde lan egitea kontrairaultza bat babestea baino hobea. Berria - Mundua

Batasun sistematikoaren printzipio honen gaizki-ulertzetik sortzen den bigarren hutsegitea arrazoimen **erratuarena** da. Ibon Uribarri

Uste horri, nire iritziz, gramatika-egituraren aurkikuntzak bete behar omen dituen urratsen artean eta hizkuntz teoriaren garapenaren artean legokeen antzekotasun **erratu** batek eman dio indarra. Berria - Gaiak

Bere bizitzako pausorik **erratuenaren** ondoren, Ramirestarrekin bat egitea alegia, Gremioko bazkide izatera gonbidatu zuten. Bego Montorio

ik beherago 5. Askoren artean

4 (forma ez pertsonalak)

Horregatik, beraz, edozertara ausartzen gara, **erratzeko** arriskua izan arren, hain premiazko azterketak ezbairen batengatik, edo gutxiespenagatik, edota axolagabekeriagatik ez uztearren. Ibon Uribarri

Uneoro zer egin, zer ez, ikasi dut, **erratzeko** beldurrik gabe. Berria - Kirola

Nor dabil zuzen eta nor oker, nork du arrazoi eta nor dago **erratuta**, eta nork du hori erabakitzen? Mirentxu Larrañaga

Baina horretan ere **erratuta** nengoen. Urtzi Urrutikoetxea

Guztiz **erraturik** dago, ezkontzako lotura zentzugabeen izenean, bere zaletasunei bidea ixten dien emakumea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erratuta dabilena ez da arrazoimenaren arabera bizi, eta ezin da zoriontsu izan erabat; bila ibili arren inoiz aurkitzen ez duena **erratuta** dabil. Imanol Unzurrunzaga

Esan daiteke, **erratzeko** beldurrik gabe, goitik behera alfertzen dela pertsona hil eta gero. Unai Elorriaga

Bete-betean **erratua** nintzen nire aitari buruz, eta berdin itsutzen nintzen itxuraz sinplea zen bikote hari buruz ere. Josu Zabaleta

Iturbide ez zebilen batere **erratua** erotzeko puntuan zegoela esan zuenean. Migel Angel Mintegi

6 nora gabe ibili.

Aise egingo dut gainera, ez nire adimen azkarragatik, auziaren bikaintasunagatik baizik, beti bila ibiltzea bila zabiltzana sekulan atzeman gabe, horixe baita **erratzea**. Imanol Unzurrunzaga

Eta batzuentzat **erratzea** abantaila izan zen noizbait, ez ohituren ildoan, bai, ordea, ibiltarien bidean. Imanol Unzurrunzaga

5 (era burutua izenondo gisa) norabide gabe dabilena.

Kometa edo asteroide baten hauts-pikor bat da izar **erratu** bat, Lurraren atmosferaren kontra abidura handian jotzen duena. Berria - Gaiak

Arima **erratu** bat zirudien, leihatilan bermaturik, begiak itxita. Xabier Olarra

Bada, bere materiaz bereizi den Patroklo dela, edo hildako baten arima **erratua** dela, edo sorgina dela, edo yetia dela. Bernardo Atxaga

Gautximeletak edo egunezko beltzak, oro har, arima **erratua**, deabrua, infernukoa, zori gaiztoa, heriotza adierazi izan du. Patziku Perurena

Gure adats luze eta askeak, ingurumari guzira kiribiltzen diren hari majikoak dira, haizearen (gure orrazerik zaharrenaren) arabera dabiltzanak, eta giza izateaz gaindi hegatzen dira izpiritu **erratuen** gisan. Patziku Perurena

Nork ez du bidaiari **erratua** nahiago bidelapur aditua baino? Imanol Unzurrunzaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arima erratu (5); **arima erratu bat** (3); **arima erratua** (3); **da erratu** (3); **erratu bat** (5); **erratu egin** (14); **erratu egin nintzen** (3); **erratu egin zirela** (3); **erratu egingo** (3); **erratu ez** (3); **erratu ziren** (3); **erratuta egon** (4); **erratzeko beldurrik gabe** (6); **eta erratu** (3)

---

erratz *(ETCn **1.617** agerraldi)* **1** *iz* zenbait landareren abarrak edo kideko sintetikoak makila baten muturrean lotuz egiten den tresna, lurra eta kidekoak garbitzeko erabiltzen dena.

Haren eskuetatik **erratza** hartu eta falta zena eskobatu zuen. Koro Navarro

Erratz bat hartzen du; baldarki dabil hara eta hona, **erratzari** eraginez. Oskar Arana

Berehalaxe azaldu zen neskatila txinatar bat **erratza** eta kubotxo bat hartuta beira pusketak lurretik jasotzera. Joxemari Iturralde

Margotzen, garbiaren gainean garbitzen, **erratza** pasatzen, kartetan, patatak zuritzen, parkeko belar txarrak ateratzen... Anjel Lertxundi

Txandaka pasatzen genuen **erratza**, txandaka garbitzen komuna. Anjel Lertxundi

Gelik eraztun bat aurkitu du tabernan **erratza** pasa duenean. Eider Rodriguez

Arratoiaren atzetik **erratza** airean hasiko da Bobbi, eta ez du harrapatu ahal izango bidaialaguna, ontzigaineko zure aspaldiko ezagun hura bera seguru asko. Joseba Sarrionandia

Gizon beltz bat eskailerak **erratzaz** garbitzen ari zen. Lopez de Arana

Arropak mimoz tratatzen ditu, zilarra distiratsu uzten du, menda-usain goxoa uzten du zorua **erratzez** pasatzerakoan eta sukalderako esku aparta du. Arantxa Iturbe

Zoruak **erratzez** garbitu, bazkari-afariak prestatu, Lucyk jada egiten ez dituen gauzak egiten ditu. Oskar Arana

Izarrei kexuka ari den emakume bat, zerbitzariak zelatan dituztelako berak eta amoranteak **erratzen** armairuan ezkutatu behar dutela beren desioa asetzearren, nori axola zaio? Oskar Arana

Neska askatu zen, eta hantxe sutondoan jarrita zegoen **erratzaz** mehatxatu zuen. Josu Zabaleta

Ainar iletsua eta ainar kantauriarra **erratzak** egiteko erabili ohi dira. Pello Zabala

Iñar-isats deitu izan zaio **erratzetarako** baliagarri zen txilar motari. Pello Zabala

Izeba atarira irten zen poltsarekin; hautsa kendu zion **erratz** baten kirtenarekin kolpeka. Juan Kruz Igerabide

Halaxe azaldu nintzen ni, **erratzaren** giderra hartuta. Joxan Elosegi

Erratzarekin jo omen zuen emakumea, **erratzaren** makila apurtu arte. Berria - Euskal Herria

Eskura besterik ez zeukala eta, txokoan aurkitu zuen **erratz** zahar batekin hasi zen dantzan. Fernando Morillo

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berrogei bat urte, **erratz**-kirtena bezain mehea eta tentea. Anjel Lertxundi

Barre eta barre jarraitzen zuen berak, behatzez **erratz** kirtenean erritmo ziurrez jotzen zuela. Josu Zabaleta

Techno 98 jarri zuen azkar laser irakurgailuan, hain azkar non, beheko auzo zaharra entzun nuen tronaduran **erratz**-gider ukaldika. Itxaro Borda

Sarri balio izan du ustezko lotsaizun horrek autorearen obra **erratz**-kolpe batez baztertzeko. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azkenean, eta etsi-etsian, isats-**erratzaz** baliatu behar izan zuen saguak etxetik kanpora uxatzeko. Mirentxu Larrañaga

Lulu bakarrik zegoen, armairuak luma-**erratzaz** garbitzen. Josu Zabaleta

4 irud/hed

Kaleak garbitzeko kamioiaren **erratzek** inguratzen ez bazaituzte. Berria - Kultura

Suzko **erratz** batek eskobatu zuen lurra, zakarrak erreaz. Koro Navarro

Kaleak garbitzen zituen haizearen **erratzak**. Eskarne Mujika

5 (sorginek eta erabiltzen dutena)

Txilibituaren hotsa jendearen orro artean galdu zen, hamalau **erratz** aireratu zirenean. Iñaki Mendiguren

Neville sekula ez zen bere bizitzan **erratzean** ibili, amonak ez ziolako erratzik inguruan utzi. Iñaki Mendiguren

Azkenean, lehenengo aldiz **erratz** gainean jarri zen mementoaz oroitu zen. Iñaki Mendiguren

Olliver Wood, erabat burumakur, lurreratu eta McGonagall andereñoarengana joan zen **erratzetik** jaitsi gabe. Iñaki Mendiguren

Harryk **erratzetik** salto egin zuen, lurretik metro-erdira zegoela. Iñaki Mendiguren

-Izan ere, azkarra eta zoragarria iruditzen zaio mundu guztiari, Potter hori bere orbain eta **erratz** magikoarekin. Iñaki Mendiguren

"Agian **erratzek**, zaldiek bezalaxe, igarri egingo dute beldur zarenean", pentsatu zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

Taldearen entrenamenduetan ikastetxeko **erratzetako** bat erabiltzen zuen orain, Izar uxo zaharretako bat, oso geldo eta estropezuka hegan egiten zuena. Iñaki Mendiguren

Letoizko iparrorratz txiki bat, bidaia luzeetan **erratzean** ipintzeko. Iñaki Mendiguren

Besoko min lazgarriak zorabiaturik, alde batera irristatu zen euriak blai egindako **erratzean**. Iñaki Mendiguren

Eta zure oroitzapenik txarrena, Harry, hain da ikaragarria, edonor bere **erratzetik** botatzeko modukoa baita. Iñaki Mendiguren

Hooch andrearen ahoan "igo **erratzetara"** hitzak irakurri zituen Harryk. Iñaki Mendiguren

Irlandako sineskerien arabera, sorginen **erratz** magikoak ez dira lizarrez egiten. Pello Zabala

Nik haietako batean ikasi nuen hegan egiten, eta **erratz** bikaina zen hura ere. Iñaki Mendiguren

Hitzezko galtzerdien inbentarioa osatzeari ekin diozu, kirioen sorgin-**erratza** hegazkin, dudako hodei guztien gainetik. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldiz erratz gainean (3); **bere erratz** (4); **bere erratza** (6); **erori zen erratzetik** (4); **erratz bat** (11); **erratz baten** (4); **erratz berri** (3); **erratz berri bat** (3); **erratz gainean** (12); **erratz gainera** (4); **erratz hori** (3); **erratz kirten** (5); **erratz kirten bat** (4); **erratz kirtena** (3); **erratza eskuan** (4); **erratza eta** (8); **erratza hartu** (8); **erratza hartu eta** (5); **erratza pasatu** (3); **erratza pasatuko** (3); **erratza pasatzen** (8); **erratzak eta** (3); **erratzak ostatuan** (4); **erratzak ostatuko** (3); **erratzaren kirtenarekin** (3); **erratzaz garbitzen** (3); **erratzen mantentze lanetarako** (4); **eta erratz** (9); **eta erratz bat** (4); **eta erratza** (6); **eta erratzak** (3); **eta erratzetik** (3); **harryren erratza** (3); **hiru erratzak** (9); **hiru erratzak ostatuan** (4); **hiru erratzak ostatuko** (3); **igo erratzetara** (3); **lehenengo aldiz erratz** (3); **zegoen erratz** (3); **zein erratz** (3); **zen erratzetik** (5); **zuen erratz** (4); **zuen erratza** (6)

---

erratzatu, erratza(tu), erratzatzen du *ad* erratza pasatu. ik **eskobatu**.

Beti gure ondoan ibiltzen zen, lohi-geruza karrakatu eta **erratzatu** ari ginelarik, eta adi-adi begiratzen zigun miresmen nabarmenaz. Mirentxu Larrañaga

---

erratze *iz* huts egitea, ez asmatzea.

Gure **erratze** moralaz ari nintzen, ez trafiko gorabeherez. Karlos Linazasoro

Guk, teknologiaren bitartez, **erratze** moral mota hori gainditzeko aukera eskaintzen dugu. Karlos Linazasoro

---

errauli *iz* kakalardo mota txikia.

Errauli bat -ingelesek *spanish fly* deitzen diote, baina ez da ez eulia (kakalardo txiki bat da) ezta bereziki espainola ere eta maitasun-maratoilarientzako errezeta guztietan agertzen da (*Lytta vesicatoria*). J.M. Olaizola "Txiliku"

---

errausgune *iz* errautsa dagoen gunea.

Denbora betetzean, bizi berria sortzen da ernamuin berde goxoekin **errausgune** emankorra estaltzeko. Iñaki Mendiguren

---

errauskailu 1 *iz* errausteko gailua.

Errauskailuetan, zaborra erretzean, konposatu toxiko ugari sortzen da, tartean dioxina famatuak. Berria - Gaiak

Animalien Ongizaterako Elkarteaz hitz egiten die, ez ordea erietxean zegoen **errauskailuaz** edo Bev Shaw-rekin ezkutuan igarotako arratsaldeez. Oskar Arana

Nik ondo bereizten dut zer den **errauskailua** eta zer erraustegia. Berria - Harian

2 erraustegia.

Hor inguruan isiotu dute egunotan, bestalde, Zabalgarbi **errauskailua**; hortik gertu egiten ari dira Trianoko golf zelaia, eta ez dira urrun geratzen ez Bilboko Portuaren handitze lanak, ez hainbat energia-proiektu handi, ez eta Barakaldoko zabalera handiko merkataritza guneak ere. Berria - Euskal Herria

Josu Madariaga Bizkaiko Ingurumen foru diputatuak iragarri duenez, udarako ipiniko dute martxan, bete betean, Bilboko **errauskailua**. Berria - Euskal Herria

---

errauskara *izond* errautsaren kolorekoa. ik **errauskolore**.

Eta orain, abadesa-janzki **errauskara** hori jantzirik, ez zain nabari ere egiten ibiltzen ari haizenik, janzkia dun hara-hona dabilena. Anjel Lertxundi

Bazen amiantoa bazter guztietan, elur **errauskara** baten modura. Juan Garzia

---

errausketa *(ETCn **1.768** agerraldi)* **1** *iz* erraustea.

Konpostatu eta birziklatu ezin daitekeen %60 horrentzako, bi tratamendu mota daude: **errausketa** eta tratamendu mekaniko biologikoa. Berria - Euskal Herria

Errausketa da oraindik ere, teknologiak hobera asko eginda ere, dioxina arriskutsuen iturri nagusia. Berria - Gaiak

Errausketaren prozesua ez da segurua. Berria - Euskal Herria

Errausketaren alternatibak ez direla bideragarriak esan du Gipuzkoako Diputazioak. Berria - Euskal Herria

Errausketaren eredua baztertzea aldarrikatzen du Batasunak. Berria - Euskal Herria

Errausketa eta birziklatzea ez dira aurkako tratamenduak, osagarri dira. Berria - Euskal Herria

PVCzko hondakin gehienak erraustu egiten dira eta **errausketa** horretan gas azidoak askatzen dira. Berria - Gaiak

Denon ahotan dabiltza polimero honek izan ditzakeen arriskuak, bai bere lorpenerako prozesuan, eta bai erabili ondorengo birziklapen edo **errausketan**. Berria - Gaiak

Lehenbiziko astelehenean, haiei utzi zien **errausketa** egiten. Oskar Arana

Astelehenean hain xuxen, hautatu dute **errausketako** labe baten tokia, Donostiako lurretan. Herria

Donostia Bizirik **errausketaren** kontrako Donostiako plataformak uste du berrikuspen hori «aukera paregabea» dela kontsentsua lortzeko. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Inguru honetan egin behar duten **errausketa**-plantaren aurkako manifestazioan izan gara. Andoni Egaña

Errausketa-labe baten tximinia. Urtzi Urrutikoetxea

Teknikari batzuk **errausketa** sistema zalantzan jartzen ari dira. Berria - Euskal Herria

Hazketa 2010 elkarteak **errausketa** xedea betiko baztertzea eskatu du. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi errausketa planta (3); **bigarren errausketa planta** (3); **dute errausketaren** (4); **errausketa dela** (3); **errausketa eta** (7); **errausketa ez** (5); **errausketa labea** (3); **errausketa labearen** (3); **errausketa planta** (18); **errausketa planta non** (4); **errausketa plantaren** (7); **errausketa tratamendu** (3); **errausketa xedea** (3); **errausketaren alde** (7); **errausketaren aldeko** (3); **errausketaren alternatibak** (5); **errausketaren aukera** (3); **errausketaren aurka** (3); **errausketaren aurkako** (5); **errausketaren kontrako** (4); **errausketaren ondorioz** (5); **errausketarik ez** (5); **errausketarik gabeko** (3); **eta errausketa** (9)

---

errauskolore *izond* errautsaren kolorekoa. ik **errauskara**.

Bere janzki **errauskolore** luze harekin oso itxura airetsua erakusten bazuen ere, ahotsa hauskorra zuen. Anjel Lertxundi

Berehala agertu zen Ada, bere abadesa-janzki **errauskolorean**. Anjel Lertxundi

Adaren estilizazioa, janzki **errauskoloreak** indartuagoa. Anjel Lertxundi

---

errausle *izond/iz* errausten duena; errausten duen pertsona.

Pentsatzen dut hor, Egunkaria-ko edo Sud Ouest-eko horoskopoek zenbaitetan iragartzen duten bizitza aldaketa **errausle** baten premia dudala, zapartatze erraldoia. Itxaro Borda

EAJ-EA eta PP, Ibarretxeren plan deiturikoa eta Aznarren dinamika **errauslea**, galtzaile. Berria - Harian

Ogibidez larrukin, zikinketari, zerbitzu garbitzaile, gorputz **errausle**... eta holako lan "zikin"-ez arduratzen dira. Herria

---

errauspe *iz irud (toki atzizkiekin)* errautsen azpia.

Gau guztian **errauspean** dago haien haserrea; goizean, ordea, sugarra bezala pizten da. Gu deneri da, euskaldun guzieri, gillotina hori behin betikotz museo batera zokoratzea, betirako egon dadin **errauspean** lo. Elizen arteko biblia

Nork esan, Erdi Aroko tobera builoso haien **errauspetik** aterako zuela Goizuetak, bere Markesik leialena? Patziku Perurena

---

errauspen *iz* erraustea.

Esne Bidea bera ez da ci-devant nebulosa bat baino gehiago, sugarrezko jaiotzatik azken **errauspenerako** bidean doazen milioika nebulosen artean. Iñaki Mendiguren

---

erraustatu, errausta(tu), erraustatzen du *ad* errauts bihurtu.

Noizetik noizera, xinpart batek besteak baino biziago urrez **erraustatzen** zituen haren ile-xorta barneko ilun-nabarrean gorrizka agiri zirenak, eta noizetik noizera, gar luzeago batek haren aztal eztia mihazkatuz, aldera inguratzen zen hats-behera ito batekin. Anjel Lertxundi

---

errauste *iz* errauts bihurtzea.

Hondakinen **erraustearen** ereduen hedapena emendatuz doa. Berria - Euskal Herria

Tokia eta **erraustearen** teknikak ezagutzen ez dituztenek erraustegia bisitatu ahal izan dute joan den larunbat arratsaldean. Herria

Familiak zuen eskatua gorpuaren **erraustea**. Berria - Euskal Herria

Zementu horrek **errauste**-prozesuak sortutako errautsak tratatzeko dauden oztopoak konpon ditzake. Berria - Gaiak

Errauste gune horretan Irun, Hondarribia eta Hendaiako herritarren zaborrak erreko dituzte. Berria - Euskal Herria

Abiadura handiko trenaren kontra gaude, paisaia suntsitzen duelako; **errauste** planten kontra gaude, kutsadura areagotzen dutelako. Berria - Mundua

Mikel Izagirre Gipuzkoako **errauste** planten aurkako koordinakundeko kidearen esanetan, **errauste** plantaren bultzatzaileak Donostian era guztietako oztopoekin ari dira topo egiten. Berria - Harian

Azterketen arabera, Txingudiko **errauste** plantetako gasek eragin handien Gaintxurizketa gainean dagoen eskola batean izango dute. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoan **errauste** planta non jarri dabiltzala, burtsak zalantzak eta ekonomiaren martxaz susmo eta usain txarrak errausteari ekin zion. Berria - Ekonomia

Ondotik, **erraustea** Errenteriako Zentolen Berri **errauste** labean izango da. Berria - Kultura

Aurrekoan bezala, **errauste** labeak Kaltea Eragiten Duten Jardueren Araudiaren barruan daudela gogoratu dute bizilagunek. Berria - Euskal Herria

Errauste labeek euri azidoa, kea eta usaiak ere sortzen dituztela esan zuen Ruizek. Berria - Euskal Herria

Ijitoak eta, batez ere, juduak gas-ganbera eta **errauste**-labeetara bidali zituzten. Urtzi Urrutikoetxea

Konpostatzeko lantegiak egingo dituzte, bat nagusia eta beste hainbat laguntzarako, aurretratamendu mekaniko biologikorako azpiegitura bat eta, hori guztia osatzeko, beste **errauste** ildo bat Zabalgarbin. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintariek errauste (3); **aldundiak bigarren errauste** (5); **aritzetako errauste** (14); **aritzetako errauste planta** (6); **aritzetako errauste plantaren** (4); **atzo errauste** (3); **bachefores errauste** (3); **beste errauste** (5); **beste errauste planta** (3); **bi errauste** (27); **bi errauste planta** (17); **bi errauste plantak** (3); **bi errauste planten** (6); **bigarren errauste** (35); **bigarren errauste planta** (26); **bigarren errauste plantaren** (7); **da bigarren errauste** (3); **da errauste** (12); **da errauste planta** (4); **dela errauste** (3); **den errauste** (15); **den errauste planta** (7); **den errauste plantaren** (5); **diote errauste** (5); **dira errauste** (4); **diren bi errauste** (3); **diren errauste** (11); **diren errauste plantak** (3); **diren errauste planten** (4); **ditu errauste** (3); **dituzten bi errauste** (4); **dituzten errauste** (6); **dituzten errauste planten** (6); **donostia txingudiko errauste** (3); **donostian errauste** (22); **donostian errauste planta** (14); **donostian errauste planten** (5); **du errauste** (12); **du errauste planta** (7); **duela errauste** (4); **dugu errauste** (5); **dute errauste** (14); **dute errauste plantaren** (3); **dute errauste planten** (3); **duten errauste** (16); **duten errauste planta** (7); **duten errauste plantaren** (8); **egitekoak diren errauste** (7); **elorzak errauste** (3); **erabiliko duten errauste** (3); **eraikiko den errauste** (3); **ere errauste** (6); **ere errauste planta** (4)

errauste ildo (3); **errauste labea** (7); **errauste labeak** (6); **errauste planta** (310); **errauste planta aritzetan** (5); **errauste planta bat** (15); **errauste planta batean** (3); **errauste planta batek** (6); **errauste planta baten** (5); **errauste planta donostiako** (8); **errauste planta donostian** (8); **errauste planta egin** (4); **errauste planta egitea** (4); **errauste planta egiteko** (7); **errauste planta eraiki** (9); **errauste planta eraikiko** (4); **errauste planta eraikitzea** (6); **errauste planta eraikitzeko** (11); **errauste planta etxetik** (3); **errauste planta ez** (8); **errauste planta gaintxurizketan** (3); **errauste planta hori** (4); **errauste planta horien** (3); **errauste planta inposatu** (3); **errauste planta ixtea** (3); **errauste planta jarri** (3); **errauste planta jartzea** (6); **errauste planta jartzeko** (9); **errauste planta non** (28); **errauste plantak** (136); **errauste plantak eta** (6); **errauste plantak ez** (9); **errauste plantak justifikatzeko** (3); **errauste plantan** (7); **errauste plantarekin** (6); **errauste plantaren** (142); **errauste plantaren alde** (7); **errauste plantaren aukera** (3); **errauste plantaren aurka** (23); **errauste plantaren aurkako** (29); **errauste plantaren auzian** (3); **errauste plantaren behin** (3); **errauste plantaren kokagunea** (4); **errauste plantaren kokalekua** (6); **errauste plantaren proiektua** (9); **errauste plantari** (17); **errauste plantari buruzko** (5); **errauste plantarik** (25); **errauste plantarik ez** (7); **errauste plantarik nahi** (5); **errauste plantaz** (4); **errauste plantei** (10); **errauste plantei buruz** (5); **errauste plantei buruzko** (4); **errauste plantek** (49); **errauste plantek ez** (4); **errauste plantek sortzen** (3); **errauste planten** (130); **errauste planten alde** (3); **errauste planten aldeko** (8); **errauste planten arriskua** (3); **errauste planten aurka** (17); **errauste planten aurkako** (43); **errauste planten inguruan** (11); **errauste planten inguruko** (4); **errauste planten kontra** (3); **errauste planten kontrako** (6); **errauste plantetan** (5); **errauste plantez** (3)

eta donostian errauste (3); **eta errauste** (36); **eta errauste planta** (16); **eta errauste plantak** (6); **eta errauste plantaren** (4); **eta errauste plantek** (3); **eta errauste planten** (4); **ez da errauste** (3); **ez du errauste** (4); **ez dugu errauste** (3); **ez dute errauste** (4); **gipuzkoako bigarren errauste** (17); **gipuzkoako errauste** (22); **gipuzkoako errauste plantak** (9); **gipuzkoako errauste planten** (8); **gipuzkoan bi errauste** (7); **gipuzkoan errauste** (3); **inguruan errauste** (3); **itxi eta errauste** (3); **itxiera errauste** (3); **izango den errauste** (7); **mankomunitateak errauste** (3); **mankomunitateek errauste** (3); **medikuak errauste** (4); **nahi dituzten errauste** (6); **nahi duten errauste** (12); **txingudiko errauste** (28); **txingudiko errauste planta** (8); **txingudiko errauste plantaren** (15); **txingudin errauste** (4); **valdemingomezeko errauste** (3); **zabalgarbi errauste** (4); **zabalgarbiko errauste** (6); **zabortegiaren itxiera errauste** (3); **zen errauste** (3); **zuen errauste** (8); **zuen errauste planta** (4); **zuen errauste planten** (3)

erraustearen alde (11); **erraustearen alde egin** (3); **erraustearen aldeko** (3); **erraustearen alternatiba** (3)

---

erraustegi *(ETCn **1.183** agerraldi)* **1** *iz* hondakinak errausten diren planta.

Txinatik legez kanpo helduriko 55 tona hegazti haragi erre zituzten asteazkenean eta ostegunean Flandesko **erraustegi** batean. Berria - Gaiak

Zakarrontzietan toki handia hartzen du plastikoak eta gisa berean toki handiagoa hondakindegietan edo **erraustegietan** erretzen diren ekaien artean. Berria - Euskal Herria

Erraustegiek zaborra behar dute nahitaez, eta zenbat eta gehiago hobe, mozkin ekonomiko eta energetiko handiagoa emango baitute. Berria - Gaiak

Hilketa-saio bakoitzaren ondoko biharamun goizean, Settlers erietxera eramaten du furgoneta betea, **erraustegira**, eta han sutara botatzen ditu poltsa beltzetan sartutako gorputzak. Oskar Arana

Udalak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Baimen Integratzailea esku artean izan aurretik eman dio Zaldunbordako **erraustegiari** jarduera lizentzia. Berria - Euskal Herria

Eskaleak ere badaude, egunez erietxearen inguruan alderrai ibiltzen direnak eta gauez **erraustegiaren** hormetan bermatuta -edo are tunelean ere- lo egiten dutenak, epeltasunarengatik. Oskar Arana

Erraustegien inguruan bizi den jendeari egindako azterketa batzuen arabera, aldaketa hormonalak, minbizia-kasuak eta arnas aparatuko arazoak emendatu dira **erraustegia** jarri ondotik. Berria - Gaiak

Eta horrek **erraustegia** zekarren, lanerako gai ez zenak ez zuelako bizia merezi. Koldo Izagirre

Hendaia ere partzuer, eginen dea beraz Hondarribiako **erraustegia**? Herria

Ekoparkeak **erraustegien** alternatibak izan daitezkeela gaineratu zuen Noguesek. Berria - Euskal Herria

2

Miarritzen joan den maiatzean idekia dute krematorium edo gorputz **erraustegia**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erraustegirik ez (3)

---

erraustoki *(ETCn **4** agerraldi)* **1** *iz* errautsa biltzen den tokia.

Ezkutatu nituen liburuak baratze bazterreko **erraustokiaren** ondoko belar luzeen artean, inor ibiltzen ez zen lekuan. Irene Aldasoro

Nik ordurako eskuan neukan otarrain arraio hura, **erraustokira** botatzeko prest, ez baitzen kuxidadea abakando batengatik neure burua hala bortxatzen uztea. Joxe Austin Arrieta

Jolasaren ibilbideak etxe-osteetako bidexka ilun lokaztuetatik barrena eramaten gintuen, eta, hango txaboletako tribu gogorren kolpe-erauntsien artetik, **erraustokien** usaina zerien baratze ilun bustietako atzeko ateetara Irene Aldasoro

---

erraustu, errauts/erraustu, errausten **1** da/du *ad* errauts bihurtu.

Gaztearen ahaiderik aurkitzen ez badugu, gorpua **erraustu** beharko dugu. Fernando Rey

Bizigune haiek guztiak, atzerritar poloniarrek sortuak haien izenei erreparatuz gero, arpilatu eta **erraustu** egin zituzten gupidarik gabe. Karlos Zabala

Tenpluan zegoen zutoin sakratua Jerusalemdik kanpora aterarazi eta Zedron errekan erre zuen; erabat **erraustu** eta errautsak jende arruntaren hilobira bota zituen. Elizen arteko biblia

Sodoma eta Gomorra hiriak ere kondenatu egin zituen eta **erraustu**, gerora izango ziren gaiztoen eskarmenturako. Elizen arteko biblia

Gero, bekatu egiteko erabili zenuten zekorra hartu eta sutara bota nuen eta, xehe-xehe egiteraino **erraustu** ondoren, menditik zetorren errekara isuri. Elizen arteko biblia

Teilak arrailtzen, puskatzen eta **errausten** ari dira. Michel Oronoz

"Yhwh, zure Jainkoa, su kiskalgarria da", hau da, haren aurka jartzen diren guztiak suntsitzen ditu, suak hartzen duen guztia **errausten** duen bezala. Xabier Kintana

Gehien birziklatzen den tokietan, **errausten** baita gehien ere. Berria - Euskal Herria

Erratza pasatuko diot eta guztiz **erraustuko** ; zingira eta triku-leku bihurtuko dut. Elizen arteko biblia

Hura, ostera, albisteen atzetik lasterka ibili gabe, eta inbaditzaileek **erraustutako** alderdi haiek aukeran ez zeharkatu nahiago zuela, irmo erabakia zeukan inon ez gelditzea. Karlos Zabala

Mehatxu egitea aski izan zuen, etxeak **erraustuak** , ondasunak bahituak eta biztanleak kupidarik gabe kalituak izanen zirela. ero ta jende gehiagok nahi du, hil ondoren, **erraustua** izan, ez eta hilerrian lurperatua. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Zendako bat-batean berriz agertu zen delako Jakes hura, ene bizia **errausten** ari zuen Jakes ausarta! Janbattitt Dirassar

Ez dira hiltzaileak: boterearen ikurrak baizik ez dituzte **errausten** . Itxaro Borda

Eta gure mundu politikoa hausten, **errausten** , banatzen, zehazten, zitzikatzen duen borroka armatuaren gaia? Berria - Kultura

3 (era burutua izenondo gisa)

Gela **erraustuan** jarriko zituzten eskursionistek beren eltzeak surtan. Anton Garikano

Zuen inguruan gelditutako herriek orduan jakingo dute ni naizela Jauna, hiri eroriak berreraiki eta lur **erraustuak** berriro landatzen dituena. Elizen arteko biblia

Botila hutsak, kartoiak, latak, plastiko **erraustuak** , arratoi eta katu larru lehortuak, zabor muino eta lautadak, zabor unibertsoa ia. Joseba Sarrionandia

Arima deuseztatu eta **erraustuan** , mundu suntsitu horretan, biziki distiratzen zuen bere borondate goriak, altzairu urtuaren leinuru zuriarekin. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dena erraustu (4); **erraustu aurretik** (4); **erraustu baino** (3); **erraustu baino lehen** (3); **erraustu behar** (3); **erraustu behar zuten** (3); **erraustu dute** (3); **erraustu egin** (11); **erraustu egin zituzten** (3); **erraustu egin zuten** (3); **erraustu egingo** (3); **erraustu egiten** (5); **erraustu eta** (9); **erraustu eta gero** (3); **erraustu ondoren** (3); **erraustu zituen** (7); **erraustu zuen** (4); **erraustu zuten** (8); **erraustua izan** (3); **erraustua izango** (5); **erraustua izango da** (3); **erraustuko dute** (16); **eta erraustu** (5); **gaur erraustuko** (5); **gaur erraustuko dute** (5); **gorpua erraustu** (9)

---

errauta *iz*

Ene sorterriko **errautaren** txapela zuen elizatxoak. Piarres Aintziart

Artaxonako goiko elizari so nengoela, aitzinaldeko geometria miresgarriari so, **errauta** baten goialdea arrosa-leihoak xilatzen duela, Ximunek erakutsi zidan herriaren mugako dorren zerrenda pollita. Piarres Aintziart

---

errauts **1** *iz* ikatza, egurra eta kidekoak erretzean gertatzen den hauts hondakina.

Tartean lurralde ketsu, antzu eta **errautsez** estalia hedatzen zen, zabal. Agustin Otsoa

Grisa jaio zen eguna, **errautsez** egin izan balute bezala. Felipe Juaristi

Heroi hilaren **errautsa** , izarren hautsa. Joseba Zulaika

Errautsa dut janari, malkoak edari. Elizen arteko biblia

Deiadar egingo dute zuregatik, garratz egingo garrasi, **errautsez** burua estali eta lurrean iraulkatuko. Elizen arteko biblia

Errautsa izango dira honezkero zure aitaginarreba horren hezurrak. Ramon Saizarbitoria

Laster lur eta **errauts** bihurtu behar zuenez, gerrian zilizioa jartzeko eta gainean **errautsa** botatzeko agindu zien. Askoren artean

Egun hartan barau egin zuten, dolu-jantzia hartu, burura **errautsa** bota eta urratu egin zituzten beren soinekoak. Elizen arteko biblia

Kulturako eginak zeuden tresna guztiak tenplutik ateratzeko agindu zien erregeak Hilkias apaiz nagusiari, apaiz laguntzaileei eta atezainei. Eta, Jerusalemdik kanpora Zedron haraneko zelaietan erre ondoren, Betelera eramanarazi zituen **errautsak** . Elizen arteko biblia

Bere baitan zatiturik dagoen erreinua **errauts** bihurtuko da eta etxea etxearen gainera eroriko. Elizen arteko biblia

Josiasek su eman zion kultu-leku hari eta aldarea hautsi, dena **errauts** bihurtuz. Elizen arteko biblia

Mirailaren aitzinean, mateletan **errauts** pixka bat pausatu zuen, urguilu-ontzi eta satisfos. Itxaro Borda

2 (izenondoekin)

Bidezidorrera iritsi zirenean jakin zuten zabala zela eta harri koskorrez eta **errauts** zapalduez zolatua zegoela. Agustin Otsoa

Iraganak erakartzen zuen berera, lurrak **errauts** zuriak erakartzen dituen bezala, hegan egin ondoren. Felipe Juaristi

Errauts gorizko euria ari zuen. Agustin Otsoa

3 (hitz elkartuetan)

Errauts -puska luze bat erori zen koronelaren purutik. Lopez de Arana

Kometa zartatuen buztanen **errauts** hodeiak, urek zizelkatu inguruak eta gasezko eremuak. Itxaro Borda

Begiak ere txikiak ziren, oso urruti begiratzera ohituta ez dagoenarenak, eta beltzak, **errauts** pinportak ia. Felipe Juaristi

Behin eta berriro **errauts** -konoaren leizearen hondoko labeak gori-gori jartzen ziren. Agustin Otsoa

Azpilak, labanak, ixipu-ontziak, intsentsu-ontziak eta **errauts** -ontziak, urre hutsezkoak. Elizen arteko biblia

Eskaileretan lokatz-aztarnak eta **errauts** -kuboen zipriztinak ikusten ziren Kanpalekutik atera egingo du leku garbi batera [...] eta su-egurraren gainean erreko; **errauts** -lekuan erreko da. Lopez de Arana

Ekarriak zituen berekin hil oihala, **errauts** kolorekoa, tunika egiteko, eta gutunean esaten ziren gainerako gauza guztiak. Askoren artean

4 irud/hed

Gauaren **errauts** grisa zelaien gainera ari zen hedatzen. Agustin Otsoa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat errauts (6); **bere errauts** (5); **bere errauts ontzia** (4); **biper errauts** (3); **dena errauts** (3); **errauts artean** (5); **errauts besterik** (3); **errauts besterik ez** (3); **errauts bihurtu** (7); **errauts bihurtuko** (5); **errauts bihurturik** (3); **errauts bihurtzen** (5); **errauts eta** (6); **errauts gainean** (5); **errauts gainean etzan** (3); **errauts hori** (4); **errauts koloreko** (12); **errauts kolorekoa** (5); **errauts meta** (3); **errauts ontzia** (7); **errauts ontzia hartu** (3); **errauts ontziak** (14); **errauts xuri** (3); **eta errauts** (40); **eta errauts besterik** (3); **eta errauts bihurtu** (3); **eta errauts gainean** (3); **eta errauts ontziak** (5); **hauts eta errauts** (6); **nork bere errauts** (4); **zaku eta errauts** (3); **zuen errauts** (3)

bere errautsetatik (4); **diren errautsak** (3); **dituzte errautsak** (3); **du erraustua** (3); **erraustua baino** (3); **erraustua besterik** (5); **erraustua besterik ez** (5); **erraustua bezain** (4); **erraustua bota** (3); **erraustua bota eta** (3); **erraustua egiten** (3); **erraustua eta** (7); **erraustak eta** (4); **erraustak garbitu** (3); **erraustak zabaldu** (3); **erraustsen distira** (3); **erraustsen gainean** (4); **erraustsera arteko** (6); **erraustsera arteko sugarra** (5); **erraustsetan eseri** (3); **erraustsetan eseri zen** (3); **erraustsez eta** (3); **erre eta erraustsak** (3); **eta erraustsa** (15); **eta erraustsak** (14); **eta erraustsetan** (4); **eta erraustsez** (7); **haren erraustsak** (7); **hautsa eta erraustsa** (3); **hautsak erraustsa** (4); **hautsak erraustsa bezain** (4); **leteren erraustsak** (3); **nire erraustsak** (3); **taldearen erraustsetatik** (3); **zuen erraustsa** (3)

---

errautsarazi, errutsaraz, errautsarazten du *ad* erraustera behartu.

Gisa horretan ditu Frantziako Estatuak bere etsai bortitzenak hautsi nahi, heien nortasuna **errautsaraziz** , otso basak ardi maltso bilakarazi nahiz. Filipe Bidart

---

errautseztatu *izond* errautsez hornitua.

Ikusten zituen sartzen, jantzi dotoreetan tinkaturik, ileorde **errautseztatuak** buruan, aginduak eman eta obedituak izaten ohituak direnen antze guziak berenganaturik. Elena Touyarou

Sorbaldetaraino heltzen zitzaizkion ileak noiztenka laxoan uzten zituen edo bestela, buztan batean bildurik eta ileorde **errautseztatuaren** erabiltzeari uko egiten zion, bulegoa katedraletik lau urratsetan zuen Durruty notarioaren langile izanik ere. Elena Touyarou

---

errautsi, errautsi, errausten du *ad* erraustu.

Peterrek orduan, ikaragarriko kolpea bota zion, bizkarrezurra **errautsiz**. Itxaro Borda

---

errautsu *izond* errauts askokoa.

Apirila euritsu, maiatza ihitsu, ekaina **errautsu**, orduan ba, laboraria urgulutsu! Pello Zabala

---

errax *izond* erraza.

Nik, ezkondu aurretik, bizimodu **errax** hori egiten nuen eta haren pribilejio haietako askotaz baliatzen nintzen, baina ez nuen gustukoa eta bizitza hartatik ateratzeko irrika nuen. Fernando Rey

Lezio argi eta **errax** bakar batzuetan analisi iraultzailea erakusten nien guztiei. Fernando Rey

-Eztok **erraxa** izan, Antton. Txillardegi

-Nirea ba -Don Kijotek erantzun- ez da ezinezkoa ezta burugabea ere; inongo iritzi-emaileren buruan izan daitekeen **erraxena**, xuxenena, erosoena eta laburrena baizik. Patxi Ezkiaga

Indian jendea eskuarki behartsu denez gero, apala eta harrokeriarik gabekoa da, hurbil-**erraxa**. Gotzon Garate

---

erraz *(ETCn **80.438** agerraldi; orobat **errats** g.er., **errets** g.er. eta **erretx** g.er. **errex** g.er. eta **errez** g.er.)* **1** *izond* neke edo lan gutxiz egiten edo lortzen dena.

Ikusiko dugunez, iritzi bat bakarra ematea, argia, irakurketa soil eta gardenekoa, ez da gauza **erraza**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Galdera **erraza**; erantzuna, ez horrenbeste. Iñaki Segurola

Pentsatzen dut hasierako ikastaroetan ere kontua ez dela gauza **errazak** eskaintzea, baizik eta, oinarrizkoak ulertu bezain laster, norberari sortzen zaizkion galderetan barrena abiatzeko tresneria teoriko erabilgarria eskura jartzea. Lourdes Oñederra

Gizartearen beharretarako egokitzapen hori zertan oinarritzen den definitzea eta nork definitu edo erabaki behar duen hori ez da kontu **erraza**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Haren aurpegi nekatua ikusi besterik ez zegoen, batere kontu **erraza** ez zela sumatzeko. Jon Muñoz

Alde du oso modu **errazean** azal ditzakeela perpausen eduki semantikoa eta egia-baldintzak. Askoren artean

Gai ilun edo zailen bat, batzuetan gai **erraz** bat azaldu edo argitzeko, aipatu edo aldez aurretik jakin beharrekoa. Xabier Kintana

Liburu honetakoak ez dira gai **errazak** eta horrek ezinbestean murrizten du adierazpidea errazteko ahalegina. Lourdes Oñederra

Arratek Bartzelonaren etxean ez zuen batere partida **erraza**, eta aurreikusi zitekeen bezala galdu egin zuen. Berria - Kirola

Gogotsu etorriko direla badakit behintzat, hiru puntuak lortzea aurrerapauso itzela litzateke eurentzat, eta badakite Sadar ez dela zelai **erraza**. Berria - Kirola

Oso erabilia den aipu honek, simil **erraz** baten bidez, estatu unibertsalek historiaren eskeman duten paradoxazko posizioa adierazten du. Iñaki Mendiguren

Bakean zen munduarekin, bake berreskuratu orbangabean, eragozpen txiki bati konponbide **erraz** bat eman ostean. Mirentxu Larrañaga

Ihardunaren ohiturak sentikortasuna ematen dio mintzoari; malkoen isuri **errazak** areagotzen dio mintzoari sentikortasuna. Jon Muñoz

Gaur egun gazteriak afizio **errazak** bilatzen ditu. Berria - Kirola

Aurki ikusiko nuen ez zela horren **erraz** eta naturala. Xabier Mendiguren Elizegi

Cherokeez idazteko era **erraz** bat asmatu behar zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haien elebitasun **erraz** eta nekegabea oso komenigarria zen beraien guraso zaharrentzat. Iñaki Mendiguren

Modu **erraz** eta merke bat, gizabanako **erraz** eta merkeek erraz eta erruz egiten dutena. Iñaki Segurola

Adibide **erraz** eta garbi bat (Nelson Goodmanen liburutik hartua) perspektiba iraulia deitzen denarena da. Josu Zabaleta

Ezin konta ahala gauza **erraz** eta merkez egindako arrosario azkengabe bat. Iñaki Segurola

S, F motako gramatikak asko hobe ditzaketen lanabesen adibide **erraz** gutxi batzuk aurkeztu baino ez dut egingo. Itziar Laka

Hemen gauza zehatzak ere esaten dira, idazteko estilo argi eta **erraz** batean jarriak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bizi-baldintza **erraz** eta erosoak dituztelako. Iñaki Mendiguren

Bertso **erraz** eta dotorerako dohaina du Chandler jaunak... Irene Aldasoro

Gotzaina Frantziskoren bihotz kartsuaz harriturik zegoen, baina hain proiektu altutik eroriko zen beldurrez, bide **errazagoak** eskaintzen zizkion. Askoren artean

Garbi dago ekoizpen horietan [...] silaba-egitura **errazagoak** moldatzen zituela haurrak. Lourdes Oñederra

Mikel Strogoffek egitasmo **erraz** eta logikoa erabaki zuen. Karlos Zabala

Gure eskalan, espazio fisikoa aski zehatz deskriba daiteke eredu **erraz** eta antzinako batez, bina-bina elkarren perpendikularrak diren hiru koordenatu (koordenatu "kartesiarrak") ardatzekiko geometriaren bidez. Josu Zabaleta

Jokabide horrek, itzulpena umezurtz utzi eta gaitzesteaz gainera, jatorrizko lan batzuk bakarrik loriatzen ditu praktikan: hizkera **erraz**, mugatu eta laua eskaintzen dituzten jatorrizko lanak, hain zuzen. Anjel Lertxundi

Bertsozaleak oso ongi ulertzen du usadioaren eta sormenaren arteko lotura ez beti **erraz** hori. Andoni Egaña

Orduan **erraza** egiten zaio zientzia horiei buruzko eztabaidan sartzea. Santiago Iruretagoiena

Apaltxo banatan, olerkia, batetik, eta, bestetik, atzerriko liburuak, hots, eleberri **errazak**, Sacré-Cœureko bidean hantxe gelditzen ziren turistentzat. Jon Muñoz

Ikerketa historikoan aspalditik egiten zen galdera horrek ez du erantzun **errazik**; ezin da ordea bazterrera utzi, baldin globalizazio ekonomikoaren sorrera ulertu nahi bada. Koro Navarro

Izan ere, mende bukaeran, lokatz eta lohi honetan sarturik gaudela, ez da ikusten irtenbide **errazik**. Pello Salaburu

Lehen urte haietan Mari Karmen Odriozola ordiziar esatari finarekin moldatu nintzen solas **errazean** gustura. Pello Zabala

Ameriketako Estatu Batuetako Lan-Idazkari Nagusi izandako Robert Reich-ek hitz **errazez** azaltzen zuen auzia: Europak kalitateko enplegua sortzen zuela, enplegu gutxi ordea; eta Ameriketako Estatu Batuek, berriz, enplegu asko sortzen zutela, baina kalitate txarrekoa. Iñaki Heras

Lehen urte haietan Mari Karmen Odriozola ordiziar esatari finarekin moldatu nintzen solas **errazean** gustura. Pello Zabala

Biribilarena aise antzematen da errima **errazeko** hitz bat alderatzearena dela. Pello Zabala

Inbertsioa da gehien aldatzen den ekonomiako elementua, eta beraz **errazen** susta daitekeena, aurrezkia eta kontsumoa egonkor samarrak baitira. Iñaki Heras

Hauxe dugu konponbiderik **errazena** formalki, eta intuizioaren aldetik ere zuzena ematen du. Itziar Laka

2 (izan aditzarekin)

- **Erraza** baita pertsona bat estigma batekin markatzea. Joan Mari Irigoien

Ez zen **erraza** esatea nor zegoen haserretuago horregatik, Ron ala Hermione. Iñaki Mendiguren

Ilegalak botatzea **erraza** litzateke. Harkaitz Cano

Ez da **erraza** sinestea. Harkaitz Cano

Trena abiadan doa dardaraka, gogor, ia arnasestuka, Valderrama lesionatuta dagoen artean, eta ez da **erraz** antzematen zer den irrealagoa. Joseba Sarrionandia

- **Erraza** da ulertzen. Sonia Gonzalez

Baina zabarkeria, behin sustraituz gero, ez da **erraza** kentzen. Askoren artean

-Ez zen **erraza** izango frogatzen -pentsatu zuen Perrettek, ozen-ozen. Jon Muñoz

Gaiarren eman zuten lehen kontzertu hartan bihotza nola zabaldu eta poztu zitzaidan ez da **erraza** esaten. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizonezkoentzat **erraza** da, inoiz ez dira emakumeak pairatu behar dituen oinazeak jasatera beharturik egon, eta ez dira egongo ere. Josu Zabaleta

Erraza izango zen, horrelako gauzak **errazak** izan daitezkeen heinean. Sonia Gonzalez

Pernando Amezketarrak zioen galderak **errazak** direla, baina erantzunak zailak. Berria - Kirola

Iruainen **errazagoa** zitzaidan ahaztea, etsitzea. Bernardo Atxaga

Askotan ez da **erraza** izango ezaugarriak sailkatzea. Lourdes Oñederra

Zuhurtziazko neurri horiek hartu ondoren, **erraza** zen gutun hura bertzeekin batera jartzea. Ez dakigu, eta ez da **erraza** kalkulu hau egitea, zein den faktore horren eragina, kontua ez baita baliabideak biderkatzea. Jon Muñoz

Orain denboran atzera begiratu eta Eñaut maite duela pentsatu beharko luke, maitasun horrek hoztasuna epeldu beharko lukeela, baina ez da hain **erraza**, ez! Sonia Gonzalez

Frantziskoren konbertsio-prozesuak hainbat urte iraun zuen, 1204/5etik (ez da **erraza** hasierako data zehaztea) 1208ra arte. Askoren artean

Gauzak zeuden moduan ez zen **erraza** izango lana aste betean bukatzea. Migel Angel Mintegi

Ez da **erraza** izan horrelakorik aurkitzea. Josu Zabaleta

Lana ez zen inondik ere **erraza**. Migel Angel Mintegi

Zuhurra eta harrigarriro **erraza** du mintzoa, eta egin dituen makurrak bakan baizik agertzen ez den xalotasunaz aitortzen ditu. Jon Muñoz

Egokitze-saio horiek ez ziren inoiz **errazak** izan. Santiago Iruretagoiena

Egoera ez da batere **erraza** izan niretzat. Josu Zabaleta

Mendian besterik da, haitzak, lurraren hezurrak baitira, agerira datoz, hotsa ateratzen dute oinetako burdineztatuen azpian, eta **erraz** da zein zer-nolako den atzematen: ordokiek ez digute inolako mesederik egiten. Juan Garzia

Ezen **erraz** da ikustea ene "Eskuliburuan" ez dela beharrezko beste baten ontasuna jabeari itzultzea. Piarres Xarriton

Zenbait kasutan ez da **erraz** izaten ordezkatze bat sailkatzea. Lourdes Oñederra

Erraz bide da hersketa-osagai hori luzatzea txistukarirako trantsizioan, eta, hala, afrikatzea gertarazi. Lourdes Oñederra

Baina ez zitzaion **erraz** ohe zimurtuan zetzan gizonaren herio hurbilaren aurreko izuaren baztertzea. Itxaro Borda

Anitzetan ez da **erraz** esatea lan horiek Euskaltzaindiari edo unibertsitateari dagozkion, lan hauetako asko inguruko gizarteetan unibertsitateak egiten dituelako. Pello Salaburu

Ez da **erraz** sinestekoa. Joxe Austin Arrieta

Ez zaie **erraz** prostituzioa uztea! Ramuntxo Etxeberri

Don Esteberekin noiznahi egoten zen, eta, tripa ondo beteta zuenean, **erraz** zitzaion don Esteberen teoria guztiak onartzea. Joan Mari Irigoien

Ba, oso **erraza** da kontua. Pello Zabala

Oso **erraza** da, neurria hartzea baino ez. Jon Alonso

Oso **erraz** zaigu arrazoi bidez azaltzea zergatik mugitzen den oinaztuaren sua sarkorrago, lurreko zuzietatik sortutako gurea baino. Xabier Amuriza

Oso **erraza** izan zen botika hartan sartzea. Sonia Gonzalez

Beti da, haatik, **errazago** bilakabideak erabiltzea ez erabiltzea baino. Lourdes Oñederra

Teatroa mendi baten maldan baldin badago, zimenduak egitea **errazagoa** izango da. Santiago Iruretagoiena

3 (beste aditzekin)

Aurkaria erretiratuz gero, lan zailena ere **erraz** bilakatzen da. Berria - Kirola

Sendo zaitzatela Jaunak bere indar ahaltsuaz, horrela edozein gauza zail **erraza** bihurtuko baitzaigu. Askoren artean

Gero harrapatzeko modukoa bihurtzen da pertsona, bere norberatasunean gero-eta harrapatzen **errazagoa**. Iñaki Segurola

Hain bizia zen haien arteko maitasun-sua, **erraza** iruditzen baitzitzaien bizia ematea. Askoren artean

Frantziskori ez zitzaiola **erraza** gertatu oreka aurkitzea hasierako malgutasunaren eta anaien bizimolde egonkorragoek eskatzen zuten araudi zorrotzagoaren artean. Askoren artean

4 (bestelakoetan)

Gainerakoan bezala, dena kontzientziabako-edo selekziobilbatze prozesu biziak -beti **errazenaren** alde jokatuz- pusatua eta kudeatua. Jose Angel Irigaray

Dena dakienak ez dauka deus ikasterik, eta deus ezin ikas dezakeenak ez daki ezer (honek, **errazaren errazegiz**, ulergaitza dirudi). Iñaki Segurola

5 (hitz elkartuetan bigaren osagai gisa, lehena aditza delarik)

Gutxi dira hartu nahi dutenak eta haren bidez salbatu nahi dutenak, nahiz eta haren uztarria eraman-**erraza** izan eta haren zama arina. Askoren artean

Arimaren hilezkortasunaren dogmak eragin izugarria du gizakiengan, egoitza-aldaketa huts baten ideia atzeman-**errazagoa** baita gure gogoarentzat, eta gozoagoa gure bihotzarentzat, beste aldaketa batena baino. Iñaki Iñurrieta

Arina da, baina hondora-**erraza**. Pako Aristi

Hainbat larriago bihurtzen da egoera koroa-arteriak bereziki oztopa-**errazak** izanda. Irene Aldasoro

Edozein lur zakar, edozein baxter, edozein harri-malkar, umel antza izatea, nahikoa zaio intsusa guztiz konforma-**errazari**. Pello Zabala

Joan eta hartu besterik ez daukatela, korapilo aska-**erraz** batez lotzen duela ondoko ontziarekin. Iñaki Iñurrieta

Giza tamainako panpina bat iraul-**erraza** da; aukera gehiago ditu erortzeko, zutik egoteko baino. Irene Aldasoro

Jakin bazekien jende zoriontsuak ez direla hain hurbil-**errazak** izaten. Jon Muñoz

Iritsi-**erraza"** denaz "ezin iritsizkoa" neurtu. Jon Muñoz

Izenak sinets-**errazago** bilakatzen ditu aurrena eta ezin dudatuzko hurrena, azkenerako mundua mundu denetik beti hor egon direla iruditzerainokoan, jakinak eta izatedunak. Iñaki Segurola

Zuhaitz horren hostoak pinuarenaren antzekoak dira; egurra, berriz, luzea da, landu-**erraza** eta barruko arotz-lanetan erabiltzeko izei hispaniarrarena bezain egokia. Santiago Iruretagoiena

Filosofiak, berriz, bihotz zabal egiten du arkitektoa, eta lagundu egiten dio ez dadin harroa izan, baizik eta, areago, jendearenganako izan dadin hartu-**erraza**, justua eta leiala. Santiago Iruretagoiena

6 (adizlagun gisa) ik **errazki**.

Erraz jakin zitekeen, baiki, soldadu alemanen ibileraren berri, kea baitzuten salatari, ke lodia, ke beltza, ke biribilkaria. Felipe Juaristi

- **Erraz** kentzen diren karminak al dira? Jasone Osoro

Erraz aurkitu zuten Maimie, elurretan utzitako urratsengatik. Julen Gabiria

Gauzak jarriak direlarik gure sentsuen bitartez haien errazki irudikatzeko eta ondorioz **erraz** gogoratzeko gisan, gauzak ongi ordenatuak direla erraten dugu. Piarres Xarriton

Nagiaren sabaia **erraz** eroriko, zabarraren etxean itaizur franko. Elizen arteko biblia

Islamofobia **erraz** kutsatzen den gaitza da, ia barneratuta dugu. Berria - Mundua

Eta hau guztia gazteek **erraz** irentsi behar luketen apoa balitz bezala, guztiei bostekoa luzatzen jarraitu du oso eta santu. Koldo Izagirre

Erraz esaten da gero! Patxi Iturritegi

Gerta zitekeen - **erraz** gertatu ere- gure protagonistaren masaila eder eta marduletako bat ezin garbituzko laidoak orbandurik geratzea. Jose Morales

Arma bat premiazkoa duzu, eskukoa, mutua eta **erraz** garraiatzen dena, ahantzi gabe nortasun agiri faltsuak, zurea litekeen argazki batez hornituak. Itxaro Borda

Saudiarrek ziurtatu dute **erraz** igo dezaketela produkzioa 10,5 milioi upeletaraino. Berria - Ekonomia

Erraz eror daiteke jendetza handia gutxi batzuen esku. Elizen arteko biblia

Zakurrak, animalia argia izan arren, bidea **erraz** gal lezake. Gotzon Garate

Inolazko eta deusen minik ez den paradisuan ere ez genuke **erraz** etsiko; egia esan, gure guraso lehenek ez zuten etsi. Iñaki Segurola

Borrokan ez dira **erraz** kikiltzen. Gotzon Garate

Inoiz ez zara zu izan **erraz** zauritzen diren horietakoa. Jon Muñoz

Baina, letrak banaka **erraz** ezagutu arren, Virgilek ezin zituen letrak batu. Xabier Olarra

Erraz erakuts dezakegu hizkuntza hauek guztiak ez direla egoera mugatuko hizkuntzak. Itziar Laka

Datuak **erraz** ahazten ditugu: [...]. Pello Salaburu

Dorreak, gainera, biribilak edo poligonalak egin behar dira; karratuak, izan ere, errazago erortzen dira makinen erasopean, ahari-buruek **erraz** hausten dituztelako kolpeka angeluak. Santiago Iruretagoiena

Irudi finkoa **erraz** definitzen da; irudi mugikorrak, aldiz, era askotakoak izan daitezke. Josu Zabaleta

Erraz pentsa daiteke nola sentitu nintzen une horretan. Josu Zabaleta

Inflazioa ez litzateke hartarainoko arazo ekonomiko larria, horren **erraz** aurreikusi eta kalkulatzerik balego. Iñaki Heras

Hortik ere **erraz** ondoriozta dezakegu nolako elikadura emango zaigun gizakioi. Edorta Agirre

Inor ez da hemen **erraz** salbatzen. Joxe Azurmendi

Erraz menderatuko nautela uste dute koitaduok. Koldo Izagirre

Arazoa **erraz** konpon daiteke, eta, gainera, oso azkar. Luis Elberdin

Ez da **erraz** konpontzen den arazoa. Jon Alonso

Aurrena, burua sartu nuen; gero, besoak gorputzaren bi aldeetan luze utzita eta oinekin indarra eginez, sorbaldak sartzea lortu nuen, eta gainerakoa **erraz** joan zen. kanpoan eguzkia agertu da eta gauzak **erraz** doazkit. Juan Kruz Igerabide

Hiru elementu elkarren osagarri, baina elkarren artean bat-batean **erraz** lotzen ez direnak. Pello Salaburu

Zelula berriak **erraz** banatzen dira zirkulazio-sisteman. Irene Aldasoro

Tratulari batek irabazi ahal duenean, **erraz** banatzen du bere etekina. Iñaki Iñurrieta

%33,36 horri beira eta papera gehitzen badiogu (beste %40), zaborraren %70 **erraz** bereiz daitekeela ondorioztatuko dugu. Berria - Euskal Herria

Batez ere, **erraz** idatzitakoa izateko itxura zuen; nolabait esateko, alaitasunez; naturala zirudien. Ramon Saizarbitoria

Idatzi agertuko dizudana, ezarri taulatxoetan, **erraz** irakurtzeko eran. Elizen arteko biblia

Oso gogorra da ohiko gauzak uztea eta behin gogoan itsatsiak ez dira **erraz** erauzten. Askoren artean

Erraz eta modu ekonomikoan eskuratzeko moduan. Santiago Iruretagoiena

Hori hala dela **erraz** ikusten da. Santiago Iruretagoiena

Anfibologia honen zergatiak, moduak eta ondorioak ez dira **erraz** eredu bakar batera egokitzen. Iñaki Arranz

Oroimenak ez du **erraz** amore ematen. Joseba Urteaga

- **Erraz** egin diek hanka? Koldo Izagirre

Arrisku txikiarekin garaipen handia **erraz** lortzeko. Joxe Azurmendi

Liberalismo hori, baina, ez da **erraz** hedatuko Europan. Berria - Harian

Hiri horretan eginiko harremanak antz gehiago du eulien arteko adiskidantzarekin gizon-emakumeenarekin baino: azkar sortzen da eta **erraz** desagertzen. Harkaitz Cano

Xehetasunetan sartzen hasita, liburu oso hau baino beste mardulago bat bete liteke, **erraz**, aurkitu ditudan itzulpen-gorabeherekin. Juan Garzia

Serbiarrek Portlanden erasoari ezin eutsirik **erraz** hartu zuten etsia. Berria - Kirola

Liburu batzuk aise eta **erraz** irakurtzen dira, beste batzuk nekez. Bernardo Atxaga

Ikusleekin **erraz** komunikatzea ere lortu du. Berria - Euskal Herria

Ezizatean urtzen naiz salbaiki, nekez eraikia **erraz** xitxifrikatuz. Itxaro Borda

Hau ez baitzen **erraz** irarria izan buztin bigunean, harri gogorrean nekez grabatua baizik. Iñaki Mendiguren

Esan **erraz** egin zuen; oraingo aktoreetarik, baina, nork zuen bera ezagutzen? Pablo Sastre

Mundu zabaleko edozein hizkuntza **erraz** eta laster aldatzen da hiztunen ahozko jardunean. Koldo Zuazo

Eta horregatik, **erraz** eta leun egiten zitzaien aginduak betetzea. Askoren artean

Hizkuntza bakarraren podorioz, giza ale guztiek elkar hartu eta ulertuko dute **erraz** eta gozo. Iñaki Segurola

Juliok oso **erraz** eta bizkor ikasten zituen joko guztiak. Josu Zabaleta

UGT eta CCOO sindikatuen eta zuzendaritzaren eskaintzaren arteko aldeak «txikiak eta **erraz** gainditzekoak» direla uste du. Berria - Ekonomia

Errazago hartu nuen arnasa. Bernardo Atxaga

Frantziako hegoaldeko dialekto batzuk, esaterako, **errazago** onartzen dituzte kontsonante multzoak iparrekoek baino. Isabel Arrigain

Euri kopuru bera denbora luzeagoan zehar, **errazago** irensten da. Lourdes Oñederra

Neurketa horren ondorioz **errazago** proposa daitezke promozio bideak, dela soldatan dela ibilbide akademikoan ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Errazago eskuratuko da kanpoan dauden eta ugariak diren iturriak izanez gero. Santiago Iruretagoiena

Horrela sua **errazago** zabalduko da zoruaren azpitik. Santiago Iruretagoiena

Indar hori banatuz **errazagoa** izango da pilatutako lurraren bultzadari eustea. Santiago Iruretagoiena

7 (beste adizlagun edo kideko batekin)

Margot eta Frank jauna xaxatzea ez da horren **erraza**. Josu Zabaleta

Harrigarria iruditzen zait pertsona larriak hain **erraz** eta hain gauza ñimiñoengatik hastea liskarretan. Josu Zabaleta

-Ez zara nigandik hain **erraz** libratuko. Koro Navarro

Horregatik eman zion amore hain **erraz** Aita santuak Frantziskoren eskabideari. Askoren artean

"Egia esatera, hain **erraz** salbatu nauenak are errazago hil nazake", egin zuen bere baitan. Patxi Zubizarreta

Legenarra edo Hansenen gaitza airearen bitartez zabaltzen den arren, ez da hain **erraz** kutsatzen. Berria - Gaiak

Pigmentu garesti eta barreiatzen ez hain **erraz** bat zen. Juan Garzia

Ezagutzen ez dena ez dela hain **erraz** aintzat hartzen. Berria - Harian

Duela sei urte nahiko **erraz** irabazi zituen hauteskundeak. Berria - Euskal Herria

Gas askok nahikoa **erraz** igarotzen dute larruazala. Irene Aldasoro

Zein ahula dugun burua, zein **erraz** txunditzen den, zein **erraz** nahasten, ulertu ezin dugun hutsaren hurrengo gauzaren batek jotzen gaituenerako! Josu Zabaleta

Gero harritu ginen ikusita zeinen **erraz** amore eman eta etsi genuen Lajosen aurrean. Ander Irizar

Figurak zuloratu aurretik zuloak haztatzeko joera zuen artean ere, baina, hori egitea debekatu geniolarik, nahiko **erraz** zuloratu zituen ikusi hutsez. Xabier Olarra

Hassan Rowhanik atzo Parisen Frantziako Atzerri ministro Dominique de Villepinekin bildu ondoren nabarmendu zuen Irango Legebiltzarrerako hauteskundeen inguruan

sortutako tirabirak «oso **erraz**» konpon daitezkeela. Berria - Mundua

Iraganetik oso **erraz** egiten dut ihes, hilda balitz bezala, ez dut haren zama sentitzen. Berria - Kultura

Egokitasun garrantzitsu asko aurkitzen ditugu, oso **erraz**, egitura sintaktikoaren eta esanahiaren artean. Itziar Laka

Biriketako gaitzak eta minbiziak eta, tabakoari bota zaio errua oso **erraz**. Pello Zabala

Estuasunak pasa direnean oso **erraza** baita gauza horiez barre egitea. Josu Zabaleta

Argitasun pixkaten jabe dena **erraz** samar ohartzen da nik sinesten ditudan zera horiek denak fedetzat, sineskizuntzat eta ideiatzat hartzen ditudala. Iñaki Segurola

Arrautzari arreta berezia eskaini behar zaio, mikroorganismoak bertan bereziki **erraz** ugaltzen baitira. Berria - Harian

Ez litzateke nire lanen fruitua arriskatzea, gure gazteei beren penak leuntzeko baliabide guztiz **erraz** hura berehala ematea? Jon Muñoz

Ondo begiratu nintzen atea jotzetik; sobera **erraz** ihardukitzeko parada ematea zatekeen eta. Jon Muñoz

Ez da batere **erraza** zehaztea zertaz diharduen metafisikak. Askoren artean

Ez pentsa batere **erraza** denik ezkutatu saltsa-miatzaile batzuen erdigune lotsagabea izatea. Josu Zabaleta

Hautabide hori, espainiar batengan, **erraz** antzean esplika zitekeen. Juan Garzia

Askoz ere **errazago** hitz egiten zen leiho irekiaren ondoan, ilun samarrean, argi askorekin baino. Josu Zabaleta

8 *erraz asko*

ELAk salatu du Basauriko alkate Rafael Ibarguenen «autoritarismoak» eta enpresaren «setakeriak» luzatu dutela lan gatazka: «**Erraz asko** onar zitzaketen langileen eskariak, baina hitzarmena eragotzi dute behin eta berriro». Berria - Ekonomia

Jakin zuen Almak ganbaratik **erraz asko** ikus zitekeela Westerborkeko patioa, bertara ekarritako presoak zenbatzeko biltzen zituzten uneetan. Felipe Juaristi

Iniziatiba handikoak eta ausartak, **erraz asko** jo izan dutenak munduan zehar enpresa berriak martxan jartzera. Ana Urkiza

Erraz asko egingo zuen gainera: Vilmak postariaren eskuetatik jasotzen zituen beti eskutitzak, eta jakin-min bereziz aritzen zen haietan kuxkuxean; posta-kutxako giltza ere berak gordetzen zuen. Ander Irizar

Gaur egun, **erraz asko** arbuiatzen da Marxen obra. Iñaki Heras

Nekez sinistuko dugu egia neska itsusi baten ahotik, eta **erraz asko** irentsiko edozer asmakeria neska eder batek esan badu. Matías Múgica

Euskaldunek Zelatunen **erraz asko** irabazi zuten. Martin Anso

Teknologia berri horrek akatsik bako kopiak egiteko aukera eskaintzen du, **erraz asko** gainera. Berria - Gaiak

Bizia osperik gabe kentzen baitzuen horrek **erraz asko**. Felipe Juaristi

Gehienez ere, esan behar zenien ume bati izen xelebrea ipiniz gero, handiak direnean arazoak eduki ditzakeela **erraz asko**. Koldo Biguri

9 *erraz-erraz*

Gaiak gaurkoak eta euskara **erraz-erraza**. Berria - Harian

Erraz-erraza ere ez. Matías Múgica

Lagun biren arteko drogak ez badira **erraz-errazak** konpontzen, atera ditzagun kontuak hortik gorakoenak. Berria - Euskal Herria

Krask-krask, **erraz-erraz** puskatzen dituzte oilasko hezurrok eta goxo-goxo irentsi. Gotzon Garate

Berriz ontziek osatzen zuten esfera airez bete orduko, ordea, **erraz-erraz** ireki zirela erakutsi zuen, txalo artean. Berria - Gaiak

Baskonia, ordea, ez da **erraz-erraz** urduritzen den taldea, eta eroso eutsi zion aldeari. Berria - Kirola

Halako batean beharrezko baledi, ontziak Ingalaterraren zerbitzura jar litezke **erraz-erraz**. Edorta Jimenez

Errege indartsu batek **erraz-erraz** eta inolako kezkarik gabe desegin ditzake bere handinahiaren aurka dauden etsaiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Asko jota, Teatro Argentino delakora edota jai-aretoetako emanaldi **erraz-errazetara**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

baina erraz (14); **baita erraz** (7); **bat erraz** (7); **bezain erraz** (33); **da erraz** (64); **da hain erraz** (8); **dela erraz** (7); **dira erraz** (11); **dira hain erraz** (7); **dute erraz** (7); **ere erraz** (30); **erraz ahazten** (9); **erraz ahaztuko** (11); **erraz aldatzen** (7); **erraz amore** (13); **erraz antzematen** (14); **erraz asko** (41); **erraz ateratzen** (10); **erraz aurki** (10); **erraz aurkitu** (9); **erraz aurkitzen** (13); **erraz bat** (27); **erraz baten** (8); **erraz bereizten** (8); **erraz da** (13); **erraz egin** (31); **erraz egiten** (39); **erraz egiten du** (7); **erraz ematen** (9); **erraz erakuts** (7); **erraz esaten** (15); **erraz esaten da** (9); **erraz eta** (114); **erraz eta eroso** (9); **erraz ez** (9); **erraz gainditu** (20); **erraz gainditu zuen** (7); **erraz gainditzen** (8); **erraz galtzen** (17); **erraz hartu** (12); **erraz hartzen** (8); **erraz ikus** (8); **erraz ikusten** (31); **erraz ikusten da** (16); **erraz irabazi** (81); **erraz irabazi zion** (12); **erraz irabazi zuen** (11); **erraz irabazi zuten** (24); **erraz irabaziko** (10); **erraz irakurtzen** (13); **erraz iristen** (8); **erraz izan** (9); **erraz joaten** (7); **erraz kutsatzen** (11); **erraz lor** (10); **erraz lortu** (8); **erraz lortuko** (7); **erraz lortzen** (7); **erraz menderatu** (9); **erraz mugitzen** (7); **erraz nagusitu** (31); **erraz nagusitu zen** (14); **erraz nagusitu ziren** (11); **erraz samarra** (8); **erraz sartu** (8); **erraz sartzen** (14); **erraz ulertuko** (8); **erraz ulertzeko** (7); **erraz ulertzekoa** (8); **erraz ulertzen** (29); **erraz ulertzen da** (11); **eta erraz** (118); **eta nahiko erraz** (8); **eta oso erraz** (15); **ez baita erraz** (7); **ez da erraz** (59); **ez dira erraz** (11); **ez zen erraz** (8); **ez zuen erraz** (8); **gauzak erraz** (10); **hain erraz** (150); **hain erraz eta** (8); **hori erraz** (13); **horren erraz** (26); **modu erraz** (9); **nahiko erraz** (41); **nahikoa erraz** (7); **oso erraz** (147); **oso erraz irabazi** (9); **zein erraz** (27); **zeinen erraz** (16); **zen erraz** (8); **zuen erraz** (11)

aski erraza (7); **aurkari erraza** (12); **baita erraza** (23); **batere erraza** (124); **batere erraza izan** (19); **batere erraza izango** (14); **beti erraza** (18); **bezain erraza** (41); **bide erraza** (18); **da aurkari erraza** (8); **da batere erraza** (72); **da beti erraza** (10); **da erraza** (601); **da erraza izan** (36); **da erraza izango** (111); **da erraza izaten** (28); **da gauza erraza** (20); **da hain erraza** (41); **da horren erraza** (9); **da lan erraza** (41); **da partida erraza** (7); **dela batere erraza** (10); **dela erraza** (63); **dela erraza izango** (26); **delako erraza** (7); **dena erraza** (9); **du erraza** (15); **du erraza izango** (7); **du lan erraza** (25); **duk erraza** (14); **dute lan erraza** (13); **egitea erraza** (16); **egitea erraza da** (10); **erabaki erraza** (10); **erabaki erraza izan** (7); **erantzun erraza** (8); **ere erraza** (11); **erraza azaltzen** (7); **erraza baita** (17); **erraza balitz** (8); **erraza bezain** (7); **erraza da** (294); **erraza dela** (45); **erraza den** (19); **erraza dirudi** (11); **erraza du** (17); **erraza duk** (15); **erraza egin** (14); **erraza egiten** (12); **erraza ematen** (13); **erraza ere** (11); **erraza ere ez** (7); **erraza eta** (47); **erraza ez** (45); **erraza ez den** (10); **erraza gertatu** (12); **erraza gertatuko** (9); **erraza gertatzen** (9); **erraza iruditzen** (10); **erraza izan** (231); **erraza izan behar** (17); **erraza izan da** (9); **erraza izan dela** (7); **erraza izan zen** (18); **erraza izanen** (29); **erraza izango** (361); **erraza izango da** (10); **erraza izango denik** (11); **erraza izaten** (60); **erraza izaten da** (8); **erraza jakiten** (10); **erraza litzateke** (8); **erraza lortu** (14); **erraza lortu zuen** (8); **erraza zela** (13); **erraza zelako** (7); **erraza zen** (74); **erraza zirudien** (9); **esatea erraza** (12); **esatea erraza da** (9); **eta erraza** (31); **ez baita erraza** (23); **ez da erraza** (591); **ez dela erraza** (63); **ez delako erraza** (7); **ez du erraza** (15); **ez duk erraza** (13); **ez zaio erraza** (8); **ez zait erraza** (8); **ez zela erraza** (17); **ez zen erraza** (104); **ez zitzaidan erraza** (7); **garaipen erraza** (16); **garaipen erraza lortu** (12); **gauza erraza** (70); **gauza erraza da** (9); **hain erraza** (114); **hain erraza izango** (16); **horren erraza** (18); **konponbide erraza** (11); **kontu erraza** (13); **lan erraza** (141); **lan erraza izan** (21); **lan erraza izango** (49); **nahiko erraza** (12); **oso erraza** (151); **oso erraza da** (60); **oso erraza dela** (9); **oso erraza izan** (13); **oso erraza zen** (7); **partida erraza** (43); **partida erraza izan** (8); **partida erraza izango** (19); **ulertzen erraza** (9); **zaio erraza** (8); **zait erraza** (8); **zein erraza** (12); **zein erraza den** (8); **zela erraza** (17); **zen batere erraza** (13); **zen erraza** (108); **zen erraza izan** (23); **zen erraza izango** (7); **zen hain erraza** (10); **zen lan erraza** (13); **zitzaidan erraza** (7); **zuen erraza** (8)

are errazago (11); **askoz ere errazago** (14); **askoz ere errazagoa** (10); **askoz errazago** (34); **askoz errazagoa** (55); **askoz errazagoa da** (17); **baino errazago** (90); **baino errazago irabazi** (9); **baino errazagoa** (58); **baino errazagoa da** (19); **baino errazagoa izan** (8); **biderik errazena** (15); **da errazagoa** (8); **da errazena** (11); **dena errazagoa** (11); **dira errazak** (15); **egitea baino errazagoa** (7); **ere errazago** (22); **ere errazagoa** (18); **errazago aurkitzen** (8); **errazago da** (17); **errazago egin** (12); **errazago egingo** (11); **errazago egiten** (23); **errazago eta** (19); **errazago gertatzen** (12); **errazago irabazi** (9); **errazago izan** (10); **errazago izango** (16); **errazago lortuko** (7); **errazago onartzen** (9); **errazago ulertuko** (9); **errazago ulertzen** (9); **errazagoa baita** (15); **errazagoa da** (140); **errazagoa dela** (32); **errazagoa delako** (7); **errazagoa duk** (7); **errazagoa eta** (14); **errazagoa izan** (45); **errazagoa izan da** (9); **errazagoa izan zen** (8); **errazagoa izanen** (14); **errazagoa izango** (84); **errazagoa izango da** (44); **errazagoa izaten** (12); **errazagoa izaten da** (9); **errazagoa litzateke** (11); **errazagoa zen** (33); **errazagoak dira** (11); **errazagorik ez** (7); **errazak dira** (12); **errazak diren** (10); **errazak eta** (15); **errazak izan** (20); **errazak izango** (8); **errazak izaten** (10); **errazegia da** (9); **errazena da** (19); **errazena eta** (11); **errazik ez** (12); **eta errazago** (46); **eta errazagoa** (37); **eta errazagoa da** (10); **eta errazagoa izango** (8); **eta errazak** (11); **ez dira errazak** (12); **gauza errazagorik** (12); **gauzarik errazena** (10); **gero eta errazago** (7); **gero eta errazagoa** (8); **hain errazak** (14); **hori errazago** (9); **horrela errazago** (7); **horren errazak** (7); **konponbide errazik** (9); **modu errazean** (10); **modurik errazena** (10); **orduan eta errazago** (10); **uste baino errazago** (26); **uste baino errazagoa** (8)

---

errazagotu, errazago(tu), errazagotzen da/du *ad* errazago bihurtu.

Hemen bekatua izan da **errazagotu** nahi izatea, horrek oker begibistakoak eta baieztapen dudamudazkoak eragin ditu, hiru, antza denez, eta hala dela frogatzen bada garbi geldituko da historialariak ez zuela batere arrazoirik historiara dedikatzeko aholku arina eman zionean. Jon Alonso

XIX. mendeko Estatu zaharrak goitik agian zabaltzen ari dira Botere ekonomiko, finantzario, militarren multiuztarketa **errazagotzeko**. Joxe Azurmendi

---

errazbide *iz* zerbait errazteko bidea.

Societas Iesu bezalako baltzu handian, gainera, izango zuen **errazbiderik**, demagun, New Yorkeko Syracuse Universityn ikasturte bateko egonaldia lortzeko. Iñaki Iñurrieta

Siriako erregeek, inperioko probintzia ekialdekoenak bere zeuzkatenez -eta beraz, Indiak ere bai-, eutsi egin zioten VI. kapituluan hizpide izan dugun merkataritzari, lehorretik eta ibaietatik egiten zenari alegia, eta **errazbide** berriz egiten zen kolonia mazedoniarrak ezarri zirenez geroztik. Iñaki Iñurrieta

---

errazimenta *iz***

Orduan, emazteak eta haurrak landa berdeetan barreiatuko dira eta emeki-emeki uzkurturik, mota guzietako deserta eta **errazimenta** goxoen egiteko, pikor laranja deliziosen biltzen hasiko dira. Aurelia Arkotxa

---

errazio 1 *iz* anoa.

Sekulako **errazioak** irensten ditu eta inoiz ez du ezezkorik erantzuten: ez gauza onak direnean, ez, gehienetan, txarrak direnean ere. Josu Zabaleta

Gizonezkoek ere jasotzen dute bere **errazioa**, nahiz eta emakumeek jasotzen dutena baino askoz txikiagoa izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egunean gutxienez ere bost **errazio** barazki eta fruitu jan behar direla ondorioztatu dute. Berria - Gaiak

2 (izenondoekin)

Elio jeneral patxadatsua iritsi zain ostatatu gara bertan, nola-hala; hiru egun ederrez, herritarrek, eskuzabal, **errazio** galantak eskaini dizkigutelarik. Txillardegi

Carbayok, eskuineko hatzak klikatuz, zerbitzariari deitu eta Mango Sorbetea Marrubizko Saltsa Epelarekin eta Tolosako Teila Ostoratuarekiko **errazio** bikoitz bat eskatu zuen. Ogi puska bat gehiago edo zopa urtsuaren **errazio** bikoitza lortzeko, presoek zaindariak nola erosten zituzten kontatu zidan. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Martinico hara joaten da, ze, joan ezean, familiak ez baitzukeen pobreei zegokien jan **erraziorik** izango. Pablo Sastre

Askoz ere geroago, beste taberna batean, hainbat sagardo botila eta bakailao-**errazio** irentsi ondoren, Bizkaiko Golkoko portu horretara ekarri zuenaz mintzatu zitzaion Rasputin. Iban Zaldua

Gabonetarako olio, gozoki eta melaza **errazio** berezi bat emango digute. Josu Zabaleta

Hemendik aurrera bakoitzari bere patata **errazioa** bereizirik emango zaio, eta egin dezala harekin nahi duena. Josu Zabaleta

Ekarri salami **errazio** bat, bi arrautza katilu batean, ogia, eta botila bat garagardo. Anton Garikano

Jazinto ez zela edalaria esan digute, eta hala baieztatzen du Txapastaren anekdotak: beroni ematen zion eguneroko bere ardo **errazioa** Cadizko kontzentrazio eremuan. Koldo Izagirre

Ron-**errazio** bikoitza atera digute, eta istant batean berotu naiz. Mirentxu Larrañaga

4 irud/hed

Urduñako mendatean bigarren euri **errazioa** jaso zuten, eta bost graduko tenperatura hotza. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errazio bat** (5); **errazio bikoitza** (3); **salami errazio bat** (4)

---

errazionamendu 1 *iz* errazionatzea.

"Probintzia traidoreak", **errazionamendua**, grebak eta kaleak militarki okupatuak. **Errazionamendua** iritsi zenean ere, ez zitzaigun jatekoa falta izan. Joxe Azurmendi

Gure kupoi ekarleak alemaniarrek eraman dituztenez, ez daukagu ez kupoirik ez koiperik; gure **errazionamenduko** bost liburuxkak besterik ez zaigu geratzen. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errazionamendu kartak bi pertsonentzako jakiak baino ez dizkio baimentzen eta merkatu beltzean erosi behar izan ditu hegaluze lata horiek. Harkaitz Cano

Errazionamendu txartelak ere ezkutuan erosten ditugu. Josu Zabaleta

Biharamunean, etxetik irteterakoan, **errazionamendu**-kartilla bat hartu nuen Maiderren bildumatik, badaezpada. Iban Zaldua

Errazionamendu-kartillak nolakoak ziren ez naiz akordatzen. Arantxa Iturbe

Errazionamendu kupoiak identifikazio txartelak erakutsiz edo bakoitza 60 florin ordainduz baizik ezin eskura daitezke. Josu Zabaleta

Bepek eta Miepek egin zituzten erosketak, gure **errazionamendu** liburuxkez baliatuz. Josu Zabaleta

Valenzuelak argitu zuenez, hautesle errolda osatzeko Husseinen agintepean banatutako **errazionamendu** liburuxken datuak erabiliko dituzte. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hilversum-eko udalak identifikazio txartel berriak banatu behar ditu biztanleen artean janari **errazionamendurako**. Josu Zabaleta

Bi kaxa lapurtu dituzte, berrogei florinekin, posta eta banku txeke hutsak, eta okerrena: gure azukre **errazionamenduko** kupoi guztiak, ehun eta berrogeita hamar kilotarakoak. Josu Zabaleta

---

errazionatu, erraziona(tu), errazionatzen du *ad* gobernuaren aginduz bizigaiak edo janariak errazioen bidez banatu.

Hemen ezin dugu garbitu, xaboi hautsa **errazionatuta** dagoelako, eta oso txarra delako gainera. Josu Zabaleta

Ingelesek berriz, gozokiak omen zeuzkaten **errazionatuta**. Arantxa Iturbe

---

errazkada *iz* errenkada.

Gizakundearen lehen jarduna gauerdian egingo da; bigarrena, egunsentian; hirugarrena, meza orduan; laugarrena, bezperatakoan; eta bosgarrena, afalordua baino lehen, bost jardunetako bakoitzean ordubete egonik; eta **errazkada** bera eramango da ondoko guztian. Patxi Altuna

---

errazkeria 1 *iz* egitekoak behar adina arreta edo neke hartu gabe burutzea.

Errazkeria litzateke datuon estrapolazioa eginda paralelotasun ideologikoak ontzea. Iñigo Aranbarri

Errazak **errazkeria** dakar, eta ez dut gogoratzen neure denboran beste aldirik, telebistako azken urteetan bezain lan gutxi egitea egokitu zaidanik. Joxerra Garzia

Hirugarren honetan, hastapenetako freskotasuna erabat galduta, bigarren diskoaren akats berberetan erori ziren, nik uste: **errazkeria**, eklektizismoa eta ideia falta dira nagusi album honetan. Patxi Iturritegi

Aurreikustekoa zenez, **errazkeriak** eta orokorkeriak besterik ez zituen esan rol horretan zegoen Kiti Manverrek. Berria - Kultura

Gauzak **errazkeriaz** agertuz, balegoke pentsatzea atzerritar inbertsioaren falta horixe dela, hain zuzen ere, lurralde horretako industriaren gelditasunaren sorburua. Koro Navarro

Irudipena dut euskaldun topikoarekin nekez lot litekeen ezaugarririk hutsalena ere erreprimitzeko joera izan ohi dudala gustagarri izateko desioz; eta **errazkeriaz** ere bai, pentsatzen dut. Ramon Saizarbitoria

Artistak, bere aldetik, [...] entzun uste duenari -nork famari, nork diruari, nork **errazkeriari**, nork aurreko hiruak batuz sortutako burrundarari- erantzuten dio. Anjel

Lertxundi

Honekin ere ez dut esan nahi **errazkeriaren** aldeko aldarrikapena egiten dudanik, baina irakurleari gehiegi eskatzen zaio. Apalean bertan zaila, **errazkeriaren** arriskua daukana. Ana Urkiza

Oraingoz ez dirudi Gasteizko artista, obra dagoeneko oparo baten jabe bada ere, **errazkeriaren** eta inertziaren mendean erortzeko arriskuan denik. Markos Zapiain

Aukera ez da **errazkeriaren** amoreagatik edo helburu didaktiko baten kariaz egina izan, maitasunaren eskutik baino. Anjel Lertxundi

Nik atzera egin beharra neukan benetako bidatzur ona hartzeko, eta hartara, nire **errazkeriaren** erruz, anaiaren bi halako kostatu zitzaidan igoera."Umeentzako da" esanez, **errazkerian** ez erortzea. Bernardo Atxaga

Badirudi literaturan maitasunaz aritzea **errazkeriara** jotzea dela. Ana Urkiza

Jackek **errazkeriarako** zuen joerak molestatzen ninduen (eta halaxe jakinarazi nion, gainera), eta hark ezin zuen ustezko nire "lirikokeria" jasan. Iban Zaldua

2 (izenondoekin)

Arazorik gabe imajinatu ahal dut liburua aireportu eta tren geltokietako liburu dendetan salgai, itxuraz gai sakonetan arakatu baina egiatan ezertan ere sakontzen ez duten **errazkeria** sasiliterarioen artean. Berria - Kultura

Errazkeria kamutsa da beti. Iñigo Aranbarri

3 (hitz elkartuetan)

Houellebecqek idazle mugatuaren trazak hartzen ditu, behin eta berriz jotzen baitu antzeko klixeetara edo **errazkeri** itxurako soluzioetara. Berria - Kultura

---

errazki *(orobat **erreski** g.er. eta **errexki**) adlag* erraz.

Nahimenarentzat bide bera hartzen da, bakoitzak **errazki** ikus dezakeenaren arabera. Piarres Xarriton

Gezurra **errazki** erraten da, egia baino **errazkiago** alabaina. Xabier Montoia

Erromatarrek **errazki** garaitu omen zituzten galiarrak, hauek ere, politika zer zen ez jakinez, beti elkarren artean gerlan zebiltzalakotz. Piarres Xarriton

Trenbidea eremu publikoa baitzen, ez ziren alta **errazki** kanporatuak izaten ahal. Ramuntxo Etxeberri

Badakit ez dela **errazki** ulertzekoa baina batera sentitzen nintzen zelatan zegoen ehiztaria eta, aldi berean, ehizatua, ezinezkoa izan arren gertakizun hori. Hasier Etxeberria

Alabaina, kafea **errazki** usteltzen da hezetasuna gaizki jasaten duelako. Berria - Kultura

Hortik **errazki** ulertzen dugu naturazko egoeran deusik ez dela, guztien aburuz, ongi edo gaizki denik. Piarres Xarriton

Arrazoimen-inferentzien *modus tollens,* hots, ondorioetatik oinarria inferitzeak, zorrozki frogatu ez ezik, **errazki** ere egiten du. Ibon Uribarri

Hemen da, beraz, orain une egokia ohartzeko zein **errazki** tronpatzen garen, nahasten ditugularik unibertsalak singularrekin edo arrazoizko izate abstraktuak izate errealekin. Piarres Xarriton

Aldiz jazartzen ohi nintzaien Gaztelan, frantsesak zirelakotz soil soilik frantsesak higuintzen zituzten gaztelauei; bai eta portugaldarrak zuzen edo makur **errazki** trufatzen eta gutiesten zituztenei, eta Portugalen, berriz, gaztelauak zuzen edo makur **errazki** higuintzen zituzten portugaldarrei. Piarres Xarriton

Eta nola **errazki** irudikatzen ditugun gauzak, besteak baino atseginago baitzaizkigu, gizakiek ordena nahiago dute nahasketa baino. Piarres Xarriton

Biziki **errazki** egin daiteke, gainera. Berria - Kultura

Gauzak beren onera itzuli, korapiloak askatu eta bizitzak **errazkiago** aurrera egin dezan laguntzen saiatu. Joxemari Iturralde

Esan litekeelakoan nago zenbat-eta barrenago eduki batek legea, morala eta ordena on ofiziala, orduan-eta **errazkiago** ager litekeela morboaren zera hau. Iñaki Segurola

-Bakarrik joanez, kontrolak **errazkiago** saihestuko dituzue. Elena Touyarou

Afektu hauen mende daudenak biziki **errazkiago** eraman daitezke, azkenean, Arrazoiaren gidaritzapean bizitzera, erran nahi da, libre izatera eta dohatsuen biziaz gozatzera. Piarres Xarriton

Gorputza maizenik hunkitzen duen gauzaren arabera eta Izpirituak **errazkienik** irudikatzen edo gogoratzen duenaren arabera. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino errazkiago (7); **biziki errazki** (3); **biziki errazkiago** (4); **dugu errazki** (5); **errazki ikus** (3); **eta errazkiago** (3); **hain errazki** (13); **zein errazki** (4)

---

errazle *izond* erraztenduena.

Administrazio **errazlerik** gabe, ez da egiturak koordinatzeko modurik ez administrazioak berak dituen hainbat baliabidetara iristeko aukerarik izango, konponbiderantz pauso sendoak egiteko unean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

erraztarazi, erraztaraz, erraztarazten du *ad* erraztatzera behartu.

Zaborrekin batera **erraztarazten** zen atarian eroritako zilarreria. Juan Garzia

---

erraztasun *(ETCn **6.911** agerraldi; orobat **erreztasun** ETCn **41** agerraldi, eta **errextasun** g.er.)* **1** *iz* erraza denaren nolakotasuna.

Erraztasuna zuen kanta berriak ikasteko, "gertaerak" gogoan edukitzeko zailtasuna izan arren. Xabier Olarra

Landare honek berehala sail handiak osatzeko **erraztasuna** du. Berria - Gaiak

Erraztasuna bai, idazlana egiteko agintzen zigutenean ez nuen papera betetzeko arazorik izaten, baina hartarako gogo berezirik ere ez, inondik ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Galduak zituen orduko konfiantza eta mugitzeko **erraztasuna**. Xabier Olarra

Prozedurazkoa eta mekanikoa ote zen soilik kopla eta kantuak ikasteko **erraztasun** hori? Xabier Olarra

Paradoxikoa badirudi ere, **erraztasuna** bera dute Schumannen piano-lanek zailtasun nagusi. Anjel Lertxundi

Mahometarren eta judutarren seta setatsua, eta herri barbaroek eta basatiek erlijioz aldatzeko duten **erraztasuna**. Iñaki Iñurrieta

Noiz ahitzen da haurrek hizkuntzak ikasteko duten **erraztasuna**? Berria - Euskal Herria

Parerik ez duten trebezia eta **erraztasun** batzuek ematen zioten gogoberotasunarekin. Josu Zabaleta

Merkataritzak mailegu-hartzaileari negozio handi eta ugariak bizkor egiteko ematen dion **erraztasunean**. Iñaki Iñurrieta

Kolpearen aitzinetik ez nuen **erraztasunarekin** mintzatzen hasi nintzela. Joan Mari Irigoien

Miretsi zuten zer **erraztasunekin** piztu zuen Jacken konfiantza. Ramuntxo Etxeberri

Arituaren **erraztasunez** sartzen du kartutxo bat errekameran, eta erriflearen ahoa txakurren kaiolan sartzen du. Oskar Arana

Bururatu zitzaidan [...] zein trebea izan zen Virgil itsu izan zen bitartean, eta zein ongi baliatzen zen bere kasa, zer-nolako naturaltasunez eta **erraztasunez** bereganatua zuen mundua eskuez baliatuz. Xabier Olarra

Hirua bizia da, bia **erraztasuna** eta bata segurtasuna ala sortzea. Ramuntxo Etxeberri

Iriondotarren etxean, ordea, ez omen zen **erraztasunik**, «ez erosteko, ezta nork erakusteko ere». Berria - Kultura

Euskaraz ez zuen **erraztasunik** eta erdarara pasatzen ginen. Joseba Zulaika

Erraztasunera erori gara, auzi kolektibora alegia. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez dut deusik ezagutzen **erraztasun** ergel hori bezain arruntik. Jon Muñoz

Pabiloia lepo betetzen da (3.000 ikusle) partida ia guztietan, eta zaleek giroa berotzeko **erraztasun** handia dute. Berria - Kirola

Golak sartzeko **erraztasun** itzela du. Berria - Kirola

Ematen zuen Gregek **erraztasun** handiz etsitzen zuela Williamsbridgen, kontuan harturik gaixo kronikoentzako erietxe batean sartutako gazte bat zela, eta ziurrenik betiko han sartua eta arazoak konpontzeko askoz ere **erraztasun** handiagoa izango duelako. Xabier Olarra

Testuinguru jakin honetan, erdarek euskarak baino **erraztasun** handiagoa dutela komunikatzeko. Pello Salaburu

Ingalaterran, aduanak errege-administrazioak kudeatuta baitaude, negoziatzeko oso **erraztasun** bitxia dago. Iñaki Iñurrieta

Zakurrek lo egiteko duten **erraztasun** iraingarri horrekin. Lander Garro

Erraz ulertzen da, hainbatik hainbatean, hasperenak **erraztasun** berezia izatea kokaleku azentudunetan agertzeko. Lourdes Oñederra

Egia da, haatik, **erraztasun** fonetiko horrekin gutxiagotu egiten dela gardentasun morfologikoa. Lourdes Oñederra

Hitzek dezaketena, hitzen zorrotza, kamusten baita ideien zapalak, **erraztasun** eta segurantzia arinak azpian harrapatzen dituelarik. Iñaki Segurola

Adibidez, Gescarterakoa; horrek iruzur fiskala eta diru ezkuturako **erraztasuna** adierazten du, adituen iritziz. Berria - Mundua

Nik argi ikusi nuen matematikak, adibidez, arbuiatu egiten nituela eta hizkuntzarentzako, aldiz, halako **erraztasuna** eta joera berezia nuela. Ana Urkiza

Inspirazioa oso deskreditatuta dago gaur egun, baina gehiegizko **erraztasunean** sinisten dugu. Ana Urkiza

Sekulako **erraztasuna** zuen Templek aziendaren umore eta seinaleei berehala eta intuizioz tankera hartzeko. Xabier Olarra

Adimen-ahalegin eskerga eta konputazio-ahalmen izugarria ditu erabili beharrak, ordea, besteak oharkabeko **erraztasunez** moldatzen diren arloetan. Xabier Olarra

Matematikan eta arlo zientifikoetan baldarra nintzen, eta aldiz, memorizatzeko, idazteko eta imajinatzeko **erraztasuna** banuen. Ana Urkiza

Honek sosegua ematen dit, Luisa, zioen Dylanek, konfiantza, gauzak egiteko gogoa, kemena, eta hitz egiteko **erraztasuna**. Pako Aristi

Autistek ez omen dute metaforarako **erraztasunik**, eta ez omen dute sekula erabiltzen ironia. Xabier Olarra

3 (pluralean)

Gaur egungo biziak eskatzen dituen **erraztasunak** (bainu gela, igangailua xaharrentzat ea...) eskainiz geroztik hiri barneko apartamendu guztietan ba da jende. Herria

Realaren defentsak eman zizkion **erraztasunak** baliatzera mugatu zen. Berria - Kirola

Agian, zorionari ere **erraztasunak** ematen dizkio. Ana Urkiza

Honekin batera esan behar da atzerrira joateko **erraztasunak** eta pizgarriak erabili behar direla. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egitasmo horrek **erraztasun** handiak emango zizkiokeen garai hartan egiten zen merkataritzari. Iñaki Iñurrieta

Lana eta bizilekua lortzeko **erraztasunak**. Berria - Euskal Herria

Nekazari gazteentzako 20 neurri dira, sektorean sartzeko **erraztasunak** izan ditzaten. Berria - Ekonomia

Zaharrei dagokienez, erretretan lan egiteko **erraztasunak** eskaini nahi dizkie hemendik aitzina lehen ministroak. Berria - Ekonomia

Kontrarioak emandako **erraztasun** guztiak baliatuz. Berria - Kirola

Bertakoek ez dituzte horrenbeste baliabide, horrenbeste **erraztasun**. Berria - Gaiak

Erdaldunei ematen zaizkien **erraztasun** berberak eman ahal izatea euskaldunei ere Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

NDFren kreditu-**erraztasunak** noiz zabaldu zain. Koro Navarro

Bastiza zaharkituak dituzten jabeei zerga **erraztasunak** eskainiak zaizkie, beren ontasunaren berritzea askoz gehiago gostatzen zaielako. Herria

Ekoizpen-**erraztasunak** sintagman du indarra, hotsak hurrenez hurren fisikoki ahoskatzeko orduan, eta oharmen-**erraztasunak**, paradigman, gure hots eta hitz-biltegian, gure hizkuntzaren memorian. Lourdes Oñederra

Eskura-**erraztasun** hori erlatiboa da, ordea. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino erraztasun (11); **baino erraztasun handiagoa** (4); **baino erraztasun handiagoak** (3); **da erraztasun** (3); **defentsan erraztasun** (3); **dizkion erraztasunak** (3); **duen erraztasun** (5); **duen erraztasuna** (11); **duten erraztasun** (4); **duten erraztasuna** (5); **egiteko erraztasun** (10); **egiteko erraztasuna** (8); **egiteko erraztasunak** (6); **emandako erraztasunak** (4); **erasoan erraztasun** (3); **ere erraztasun** (3); **erosteko erraztasunak** (3); **erraztasun asko** (5); **erraztasun asko eman** (4); **erraztasun berarekin** (5); **erraztasun eta** (9); **erraztasun gehiago** (17); **erraztasun gehiago eman** (3); **erraztasun gehiago izango** (3); **erraztasun gehiagorekin** (3); **erraztasun gehien** (4); **erraztasun gutxi** (4); **erraztasun guztiak** (25); **erraztasun guztiak eman** (6); **erraztasun guztiak ematen** (4); **erraztasun handia** (21); **erraztasun handia du** (3); **erraztasun handia dute** (3); **erraztasun handiagoa** (17); **erraztasun handiagoa dute** (5); **erraztasun handiagoak** (6); **erraztasun handiagoz** (3); **erraztasun handiak** (7); **erraztasun handiak eman** (3); **erraztasun handiarekin** (3); **erraztasun handirik** (3); **erraztasun handiz** (9); **erraztasun harrigarriz** (3); **erraztasun hori** (8); **erraztasun horrek** (3); **erraztasun paregabea** (3); **erraztasuna bere** (3); **erraztasuna dauka** (3); **erraztasuna du** (8); **erraztasuna ematen** (3); **erraztasuna erakutsi** (3); **erraztasuna erakutsi du** (3); **erraztasuna eta** (9); **erraztasuna ikusita** (3); **erraztasuna izan** (5); **erraztasunak eman** (20); **erraztasunak eman behar** (6); **erraztasunak emango** (3); **erraztasunak ematea** (3); **erraztasunak emateko** (7); **erraztasunak emateko eskatu** (3); **erraztasunak ematen** (7); **erraztasunak eta** (5); **erraztasunak izan** (4); **erraztasunei esker** (3); **erraztasunik eman** (5); **erraztasunik emango** (7); **erraztasunik ematen** (5); **erraztasunik ez** (8); **erraztasunik gabe** (3); **eskuratzeko erraztasunak** (3); **eta erraztasun** (21); **eta erraztasun guztiak** (3); **eta erraztasun handiz** (3); **eta erraztasuna** (5); **gero eta erraztasun** (3); **golak sartzeko erraztasuna** (5); **ikasteko erraztasun** (3); **inolako erraztasunik** (3); **iristeko erraztasun** (3); **sartzeko erraztasun** (3); **sartzeko erraztasuna** (6)

---

erraztatu, errazta, erraztatzen **1** du *ad* erratzaz garbitu.

Arabiar edo bestelakoetan, kaleak **erraztatzen** dituztenak edo euren izen-abizenak idazten ez dakitenak baino ez zaizkie gustuko. Berria - Harian

Gela **erraztatzen** edo hautsa kentzen hasten zen han eta hemen; ohea egiten zidan; trapua pasatzen zion hormetan neukan apaingarri bakarraren kristalari. Anjel Lertxundi

Askotan esan zion gela **erraztatzen** zuen mirabe zaharrari uzteko leihoak zabalik, eguzkia sar zedin. Josu Zabaleta

Kaleak **erraztatzen** joaten ziren, orduz ordu, kalez kale. Jon Maia

2 irud/hed

Horra hor, etorkizuneko laborategietan **erraztatu** beharreko zikinkeriak eta zaindu beharreko altxorrak. Edorta Agirre

Nabaritzen ez zen haizeak lorategian lurreko hostoak **erraztatzean** sortzen zuen hotsa entzun zezakeen. Ibon Uribarri

Gaua horrela pasa, hormako estanpatuetako lerro urdinak zenbatuz, leihotik N-1 errepidean zehar zihoazen autoen fluorezko sega sentituz, gela argitu eta kolpe batez segak barreiatu zuen argi guztia ostera ere bildu eta **erraztatzen**. Harkaitz Cano

---

erraztazale *iz ipar* erratzaz kalea garbitzen duen pertsona.

Türkak **erraztazale** lanetan. Berria - Kultura

---

errazte **1** *iz* errazago bihurtzea, nekea edo eragozpena gutxitzea.

Berriz ikusten dugu, juntaduraren kasuan bezala, gramatikaren **errazte** garrantzitsua lor dezakegula, zuzeneko osagai-analisiari dagozkionak baino konplexuagoak diren erregela motak eratzea zilegi bazaigu. Itziar Laka

Erregela honek gramatikaren **errazte** nabarmen batera garamatza. Itziar Laka

2 ***errazte aldera*** errazteko.

Europako Parlamentuak uraren kalitatearen berri emanen duten irudi berdinak ezarriko ditu Europa osoan, egungo sistema **errazte aldera**. Berria - Harian

KGNZren osagaiak definitzeaz gain, 2006an izen eta irudi berria asmatu beharko dituzte, «komunikazioa **errazte aldera**». Berria - Kultura

Saio honetara ekarri ditudan izkribu zaharretako ortografia gaurko joeretara egokitu dut irakurlearen lana **errazte aldera**. Koldo Zuazo

Madrileko Udaltzaingoak «ibilbide alternatiboak» ireki zituen leherketak gertatu ziren gasolina zerbitzuguneetatik gertu, zirkulazioa **errazte aldera**. Berria - Euskal Herria

Europako Parlamentuak uraren kalitatearen berri emanen duten irudi berdinak ezarriko ditu Europa osoan, egungo sistema **errazte aldera**. Berria - Harian

Berari gauzak **errazte aldera**; ez bainuen zakarra izan nahi. Joxe Austin Arrieta

---

erraztearren *adlag* errazteko.

Aipamenak **erraztearren**, eztabaidan zehar garrantzi handia izan duten ingelesaren gramatikako erregelak biltzen ditugu hemen. Itziar Laka

EHUko kide guztien parte-hartzea **erraztearren**, Unibertsitateko zentro guztietan hautestontziak izango dira. Berria - Euskal Herria

Kontsulta-irakurketak **erraztearren**, gida honek ere kontsulta-liburuen estiloari jarraitzen dio: esaldi laburrak, irizpide orokorrak, aholku praktikoak, adibide errazak, ereduak. Askoren artean

Trajez zegoen gizon batek, besteen lana **erraztearren**, hutsartea zabaltzen zien goiko soka bien artean. Josu Landa

Eskerrik asko, eskerrik asko nire eginbeharra horrenbeste **erraztearren**. Oskar Arana

Mezuaren arabera, preso korsikarrak Borgu espetxean biltzeko prozesua **erraztearren** ematen zuten menia. Berria - Mundua

Umeen integrazioa **erraztearren** euskal gizartean. Berria - Euskal Herria

---

erraztegi *iz* **

Handik aldi batera, Harry bakarrik irten zen aldagelatik, bere Nimbus 2000 **erraztegira** eramateko. Iñaki Mendiguren

Harry **erraztegira** iritsi zen. Iñaki Mendiguren

---

erraztu *(ETCn **14.236** agerraldi; orobat **erreztu** ETCn **42** agerraldi, eta **errextu** g.er.)*, erraz(tu), errazten **1** du *ad* errazago bihurtu.

Garraio eta logistikaren arloan iraultza baten abiapuntua izan ziren edukiontzi erraldoiak; merkatu, bizkortu eta **erraztu** egin zuten merkantziak batetik bestera eramateko lana. Berria - Gaiak

Horrek asko **erraztuko** du dena... Iñaki Mendiguren

Kontua ez da bakarrik zenbat aurreratu duen zientziak, eta zenbat **erraztu** digun bizitza, urteetan ere luzatuz, teknologiak. Pello Salaburu

Ingelesaren deskribapena asko **erraz** dezakegu, eta bere egitura formalari buruzko aurkikuntza garrantzitsuak egin, osagai-egituraren araberako deskribapen zuzena murriztu egiten badugu perpaus soilen muin batera. Itziar Laka

S@reak jakite huts zertangabea ikaragarri **erraztu** du eta azkartu; bestea, benetako jakitea, ezin harrapa dezake inongo sarek. Iñaki Segurola

Mandatuak **erraztu** nahiz, beraz, Baionako azokara joaten hastea erabaki nuen Gauzak **erraztu** izana eskertu nion nire baitan. Txillardegi

Asimilaziozko palatalizazioan kontsonante horzkari edo hobikariaren ahoskunea inguruneari egokitzeko aldatzen da aurreko bokal palatalaren eraginaz, hots-bilkuraren ahoskera **erraztuz** asimilazioz. Lourdes Oñederra

Merkataritzaren goraldiarekin, italiar merkatarien ekimenez, findu egin ziren finantza-teknikak, gerora salgaien joan-etorria **erraztuko** zutenak. Koro Navarro

Hesian egindako zuloek **erraztuko** zioten irteera Mikel Strogoffi. Karlos Zabala

Uste dinat bera izango dela bidea **erraztuko** didana, dena dagoen baino okerrago jarri beharrean. Joxemari Iturralde

Konfiantzan, ezaupidean eta adiskidantzan pertsonen arteko tratua **erraztu** egiten da, samurtu. Iñaki Segurola

Bi edo hiru hilabete itxaroten badugu, politikak ekartzen dizkigun berriei adi bagaude, Batasunaren eta besteon arteko elkarlana **erraztuko** da. Berria - Euskal Herria

Badakigu honek ez digula lana **erraztuko**, baina ekonomi sailean bide hori hartu denez, interesgarria iduritu zaigu honen praktika bultzatzea. Herria

Horrek asko **erraztuko** luke botika egiteko prozesua. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko erraztu (17); **asko erraztuko** (9); **asko erraztuko du** (3); **batere erraztuko** (3); **bidea erraztu** (15); **bidea erraztuko** (12); **dena erraztu** (3); **elkarrizketa erraztu** (3); **ere erraztu** (3); **erraztu asmoz** (3); **erraztu behar** (13); **erraztu beharko** (4); **erraztu dezake** (3); **erraztu du** (8); **erraztu duela** (3); **erraztu dute** (4); **erraztu egin** (29); **erraztu egin behar** (4); **erraztu egin du** (5); **erraztu egin nahi** (4); **erraztu egin zuen** (3); **erraztu egingo** (9); **erraztu egingo duela** (3); **erraztu egiten** (26); **erraztu egiten da** (5); **erraztu egiten du** (13); **erraztu eta** (18); **erraztu ez** (3); **erraztu nahi** (14); **erraztu zien** (3); **erraztu zion** (10); **erraztu zituen** (3); **erraztu zizkion** (4); **erraztu zuen** (14); **erraztu zutela** (3); **erraztuko dio** (3); **erraztuko ditu** (4); **erraztuko du** (17); **erraztuko duela** (8); **erraztuko duelakoan** (3); **erraztuko duen** (5); **erraztuko duten** (3); **erraztuko luke** (3); **eta erraztu** (4); **eta horrek erraztu** (10); **garaipena erraztu** (4); **gauzak erraztu** (9); **gauzak erraztu nahi** (3); **gauzak erraztuko** (5); **gehiegi erraztu** (5); **hartzea erraztu** (3); **hori erraztu** (4); **horrek asko erraztu** (4); **horrek asko erraztuko** (4); **horrek erraztu** (12); **horrek erraztu egin** (7); **horrek erraztu egiten** (3); **horrek erraztuko** (3); **lana asko erraztu** (3); **lana erraztu** (25); **lana erraztu behar** (3); **lana erraztu eta** (3); **lana erraztu zuen** (3); **lana erraztuko** (4); **parte hartzea erraztu** (3)

asko errazten (12); **asko errazten du** (5); **bidea erraztea** (4); **bidea errazteko** (4); **bidea errazten** (12); **dena errazten** (3); **dena errazten du** (3); **edo errazten** (3); **ere errazten** (3); **errazte aldera** (7); **erraztea da** (4); **erraztea zen** (3); **errazteko asmoz** (5); **errazteko eta** (8); **errazteko neurriak** (4); **errazten ari** (4); **errazten baitu** (4); **errazten da** (4); **errazten ditu** (5); **errazten dituen** (7); **errazten du** (42); **errazten du eta** (3); **errazten duela** (9); **errazten duen** (5); **errazten dugu** (3); **errazten dute** (10); **errazten dutela** (5); **errazten duten** (7); **errazten eta** (3); **errazten zuen** (3); **gauzak errazteko** (4); **gauzak errazten** (6); **harremanak errazteko** (3); **hori errazteko** (7); **hori errazten** (3); **irakurketa errazteko** (4); **irakurketa errazten** (4); **izugarri errazten** (3); **komunikazioa errazteko** (5); **konponbidea errazteko** (3); **lana errazteko** (23); **lana errazten** (11); **lana errazten du** (3); **lanak errazteko** (3); **prozesua errazteko** (8); **tortura errazten** (5)

---

erraztuna ik **eraztun**.

---

errazxe *adlag* erraz samarra.

Hurrego ikasturtea, irakasgai gutxiago baitziren, **errazxeagoa** zen, ez zegoen hainbeste gauza buruz ikasteko. Josu Zabaleta

---

erre[1] *iz* R letraren izena.

Eskuak poltsikoan, **erre** i pearen azpian bere izen propioa berrirakurri zuen harrituta, eta data amatatu haietatik hilaren adina kalkulatu zuen. Joseba Sarrionandia

---

erre[2], erretzen **1** du *ad* zerbait suaren bidez ahitu; suak edo berotasun gehiegiak zerbait hondatu.

Hainbat baserri **erretzen** ikusi dituen laborariaren eskarmentua. Pello Zabala

Anarkista hura, bero ikaragarria egiten zuen arren larruzko zamarra beltzez jantzia, herritik alde egin aurretik fabrikak **erre** behar zirela esaka. Ramon Saizarbitoria

Gero, komunista eta sozialistek elizak **erre**, apaizak eta mojak giltzapetu, eta errukirik gabe hil zituzten tiroka. Rafa Egiguren

Singel eta Vijzelstraat kale kantoi guztia **erre** da. Josu Zabaleta

Erreko al dugu etxea? Pello Lizarralde

Oihana **erretzen** ari dituk zital horiek. Jon Muñoz

Sutarako egurrik ez, eta aulkia **erre** ! Pello Zabala

Ea nondik atera zuten egur hura suak **erretzen** ez zuena. Santiago Iruretagoiena

Sasoi honetan **erretzen** zuten baita ere ote-zaharra, ihartua, ote-puntta berri gozoa ardiek eta ahuntzek jan zezaten. Pello Zabala

Hidrogenoa zen, beraz, garbi: eguzkian eta izarretan **erretzen** den gai bera. Juan Garzia

Argiontziaren gasa **erretzen** zen tabernako egurats oraindik esnatu gabean. Karlos Zabala

Moises begira jarri zen: sutan egon arren, sasia ez zen **erretzen** ! Jose Antonio Mujika

Ikatza **erretzeak** sortzen du gehienbat euri azidoa. Pello Zabala

Fuel guztia **erreta** itsaso zabalean gelditu zen gauean, argirik gabe, eta gure portura zetorren zamako handi batek jota hondoratu zuen. Koldo Izagirre

Jendeak kultu-leku haietan opariak eskaintzen eta intsentsua **erretzen** jarraitu zuen. Elizen arteko biblia

Istar zeruko erreginari **erreko** diogu intsentsua eta eskainiko isur-opariak. Elizen arteko biblia

Soroan gelditu diren zorton edo zurtoin erdi-iharrak denak **erre** , eta bakea! Pello Zabala

Piparen ontzi beteegiari sekulako kea zerion bizarren artetik, belar sorta bat bailitzan makila baten puntan **erretzen** . Koro Navarro

Albaialdea, labean **erretzen** denean, suaren beroarekin kolorez aldatzen da. Santiago Iruretagoiena

Enbor txiki bat, argizari eta zerrautsezkoa, griselan **erretzen** ari zen. Koro Navarro

Erre nahi duzu, adiskidea? Jose Morales

Alemanak izanak ziren ehunka urtean bere familiakoak, esan zion semeari, eta **erre** zedila infernuan baldin eta tirano ziztrin bati uzten bazion bera erbestera ihesi bidaltzen. Oskar Arana

Kristinoek karlistak **erretzen** zituzten eta karlistek kristinoak. Koldo Izagirre

Burdin gori batek, jakina, **erre** egingo zaitu. Pello Zabala

Bere semea oparitzat eskaini zuen, sutan **errez** . Elizen arteko biblia

Kontua da epaitu eta kondenatu egin zutela, eta bi heriotza-zigor eman zizkiotela: bat pozoitze ahaleginagatik, lepoa moztera, bestea sodomiagatik, sutan **erretzera** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Espainiako mugan ezarriko ninduke, Ofizio Sainduak zikiro baten gisara **erre** nazan. Aingeru Epaltza

Kerosenoz igurtzi eta bizirik **erre** zuten. Gotzon Garate

Irten zen infernutik, saiatu zen purgatorioa igarotzen, baina bere barruko infernuko sugar ikaragarrietan **erre** zen, paradisura iritsi gabe. Jose Morales

Erreko ahal zara surtarako ezpala bezala. Koro Navarro

Fishguard Alleyko tabernatik gertu, non **erretzeko** alkoholaren edaleek poliziaren besoetan dantzan egiten baitzuten eta arropa mordo bustiak ziruditen emakumeek banpiroak edo suhiltzaileak itxaroten baitzituzten atarietan eta pareta bustiaren zuloetan. Koro Navarro

Beheko ezpaina **erre** zion zigarroaren puntak. -galdetu zion Musiak-. Koro Navarro

Erre gabeko edo partzialki **erretako** erregai pixka bat botatzen dute motor gehienek ihes-hoditik. Irene Aldasoro

Gorputza **errea** delarik, hautsak nun ezar? Herria

Inork ez du **erreta** hil nahi. Koro Navarro

Asko dira zapaltzen dugun lurraz edo **erretzen** gaituen suaz artez hitzegingo luketenak. Bernardo Atxaga

Azken parte hau hemendik igortzen dugu ondarkin pozointsuak tratatzen dituen beste zentro batetara, tratatzen baino, hobeki erraiteko, **erretzen** dituena. Herria

2 irud/hed

Kresalak bakarrik **erretzen** duen moduan zartaturik zeuzkan begi-ondoak. Anjel Lertxundi

Zoda kaustikoak oihal guzia jan zuen, **erre** , suntsitu. Eneko Bidegain

Zurrupaka edan zuen, eta zurrupek eztarria **erre** zioten. Jon Muñoz

Migeli hezetasunak hezur-mamiak ustelduko zizkion edo larruei darien laino kiratsak birikak **erreko** . Aingeru Epaltza

Alemaniako turista bat, eguzkiak **errea** eta hautsez betea. Oskar Arana

Gelaren berotasunean ronak **erre** egiten zuen eta ostikoak jotzen zituen, baina burua mendi bat bezain gogorra neukan. Koro Navarro

Jauna, Jainko ahalguztiduna, zureganako maiteminak **erretzen** nau, israeldarrek zurekiko ituna hautsi dutelako. Elizen arteko biblia

Gehiegizko beroak **erre** egiten ditu landa guztiak; oso ganadu gorri gutxi haz liteke; beti daude laborantzarako aski ganadu ez izateko arriskuan. Iñaki Iñurrieta

Maiatza, erdiz hotzak hila, eta erdiz beroak **errea** . Pello Zabala

Idorraren hila, sikutearen hila, agorrarena, euri gutxi samar egiteaz aparte, beroak lurra **erre** eta estu hartzen duelako. Pello Zabala

Bere ohiko su hotz harekin mintzatu zitzaidan... baina su hotz hark suzko suak baino gehiago **erretzen** zuen batzuetan, nola **erre** baininduen mementu haietan. Joan Mari Irigoien

Kalean izotzak **erre** egiten zuen. Koro Navarro

Bai baitzirudien Sergiori beharrezkoak zitzaizkiola, soberan zuen energia **erretzeko** -edo. Joan Mari Irigoien

Jakina da nolako kezkek **erretzen** zizkioten barrenak aita koitaduari. Karlos Zabala

Zerbait **erretzen** hasi zitzaion barruan, zeharo edanda zegoen, sugar urdinxka bat atera zitzaion barrutik, eta ahitu egin zen, ahitu eta belztu, ikatza bezala, eta arotz bikaina zen! Jose Morales

Unean bertan, eskuak ihartu egin zitzaizkion eta bero kiskalgarri batek **erretzen** zizkion atzamarrak. Askoren artean

Giltzek poltsikoak **erretzen** zizkidaten eta, eginbeharraren latzagatik ere, horiek jabeari lehenbailehen itzuli bertze deusen irrika ez nuen dagoeneko. Aingeru Epaltza

Kasu handiz, ez **erretzeko** , ogi ihartu berrietariko bat ertzetatik hartu eta gurina hedatu nuen gainean. Aingeru Epaltza

Unean bertan, eskuak ihartu egin zitzaizkion eta bero kiskalgarri batek **erretzen** zizkion atzamarrak. Askoren artean

Edariaren garratzak eztarria **erre** zidan, eztul egin nuen. Anjel Lertxundi

Begiak izerdiaren gaziz **erretzeraino** ekiten nion, bada, goizeroko saioari. Anjel Lertxundi

Beldurra gorputzeko zuntz guztietan senti nezakeen eta, harekin batera, lotsa gorri, jasanezin bat, begiak **erretzen** zizkidana. Alberto Ladron Arana

Begiak hartan **erre** beharrean eman nion segida, xede oraindik jakin gabeko bidaiari. Aingeru Epaltza

-Barbarinak labean **erreta** , eta aurretik entsalada edo zopa. Hasier Etxeberria

Ximurrarekin **erreta** egoteko arrazoien saskia mukuru neukan. Aingeru Epaltza

Lo eza gero eta nekagarriagoa zitzaion eta betazaletan lamada gisako bat nabaritu zuen, burua bera ere **erretzen** ziona. Patxi Zubizarreta

Armarri haren berri jakiteko gurak **erretzen** ninduen. Edorta Jimenez

Azido sulfurikoz **erretako** emakumeak dira. Gotzon Garate

Eta non eta hemen zegoen bera, Matthews jaunari entzuten, edale erretiratu bati, ilunpeari nola deitzen zion arratsaldeko hondartzan, diruak sakela **erretzen** ziolarik, larunbata ere **erretzen** eta alferrik galtzen ari zenean. Koro Navarro

Lihozko maindireen artean elkar maitatzen **erreko** dutela gaua. Anjel Lertxundi

Hauspoko azken hatsa **erretzeko** adore hori. Koldo Izagirre

Sukaldeko fluoreszentea **erre** zitzaiguan atzo guri. Koldo Izagirre

Soilik biraoren bat gauzak nahi bezala irteten ez zaizkionean, edo bekokiko izerdi tantoren bat begiak **erretzera** sartzen zaion bakoitzean. Hasier Etxeberria

Koba guztiak **erreta** daude eta hau da lekurik seguruena. Harkaitz Cano

Karrikak, beroak **erreak** daude, itzalek berek hego haizeak ufatuak dirudite. Piarres Aintziart

Dirua nolanahi **erretzekotan** bazabiltzate, har zeuon zakurrok eta New Yorkera! Gotzon Garate

3 janariak suaren eraginpean prestatu, zuzenean nahiz labean ezarriz.

Argazkiaren angelu batean, haragia **erretzeko** parrilla ikusten da, dena ketan. Bernardo Atxaga

'Taloak **erretzeko** erabiltzen den burdina. Joseba Sarrionandia

Idien uztarriaz sua egin eta **erre** zuen okela eta jaten eman zion jendeari. Elizen arteko biblia

Jaunari eskainiriko ogiez, eskaintzetarako ogi-irinaz, legamigabeko opilez, zartaginan **erretako** opilez, oliotan bustiriko taloez, pisu eta neurriez ere arduratu behar zuten. Elizen arteko biblia

Ogi-irina hartu eta egin zuen orea eta **erre** zituen opil batzuk. garunak ilarrekin, saltxitxak azalorearekin, labean **erretako** oilanda galkatua, luzoker gaziak eta, beti bezala, hostorezko gozopila. Elizen arteko biblia

Labean **erretako** ogi txiki goxo-goxoak. Jon Muñoz

4 tabakoaren edo antzeko gaien kea arnasarekin hartu.

Zigarreta bat **erre** nuen, leihotik kanporantz begira. Joxe Austin Arrieta

Peta bat gustora **erreko** lukeela pentsatu du autostopistak. Iban Zaldua

Cesarrek zigarro bat **erretzen** zuen bitartean azaltzen zizkigun kalkulu integralaren xehetasunak edota karbono molekulen egitura. Bernardo Atxaga

-Ez dut horrelako ohiturarik hartu, beldur naiz; diotenez, pipa **erretzea** osasunaren kaltegarri da. Jose Morales

Tabakoa **erre** eta **erre** ari nintzen, muturtuta nengoen, bekozko ilunez. Fernando Rey

Tabakoa **erre** eta ahotik kea egotzi, ez zuen bertze atseginik. Joan Mari Irigoien

Tabako-belarra **erretzeko** paperean biltzen ari zen. Bernardo Atxaga

"Zer tabako **erretzen** duzu?", galdetu zion Martinek Cesarri lurrean zegoen zigarroari begira. Bernardo Atxaga

Zientzietako guztiek beltza **erretzen** dute, eta nire kide honek ere bai -argitu zion Redinek-. Bernardo Atxaga

Pakete bat **erretzetik** bi pakete **erretzera** pasatu nintzen. Joan Mari Irigoien

Arratsaldean etorri ohi zen eta, Kirxaren kafean beti toki bera hartzen zuelarik, nargilea **errez** eta tea edanez aritzen zen denbora pasa. Patxi Zubizarreta

Jaten eta edaten ematen zien, eta ondorenean haxixa **erretzen** zuten. Patxi Zubizarreta

Sei hilabete baino ez ziren **erretzen** hasia zela, Martarekin bizitzen zeramatzan sei hilabete haiek berberak. Harkaitz Cano

Asko **erretzen** zuen, zigarroa beti ahoan izaten zuen. Pello Lizarralde

Leihotik kanpora begira zegoen, **erretzen**, eta laster zigarroa itzali eta niregana etorri zen. Xabier Olarra

Aizu, Idoia, oraindik **erretzen** al duzu? Eider Rodriguez

-Ez dut **erretzen**. Joxemari Iturralde

Ez zaramaat hiru urte **erre** gabe, orain zuen keak jasateko. Aingeru Epaltza

Erretzeko gogoa dut, baina ez naiz ausartzen. Monika Etxebarria

Galarazita genuen institutu barruan **erretzea**. Anjel Lertxundi

Erretzeko biziora itzultze horrek eta altzairu tristeez horniturik leku txiki eta itxi batean hainbeste denbora egoteak sobera deprimitu ninduen. Ramon Saizarbitoria

Bazkaldu ondoren, **erretzeko** gelara iragaten ziren. Monika Etxebarria

Urdaileko zera berriro (gehiegi **erretzen** nuen!). Joxe Austin Arrieta

Urteak ziren **erretzen** ez zuela. Ramon Saizarbitoria

Biriketako minbizia du, eta ez du sekula **erre** ere egin. Oskar Arana

Zigarretak eskaini zizkidan, aldamenekoak, baina nik neureetatik hartu, **erretzeko** gogorik ez neukan arren. Joxe Austin Arrieta

Ikuskizun ikusgarria aitona **erretzen** ikustea...! Joan Mari Irigoien

Nire ama haserretu egiten da **erretzen** ikusten banau. Bernardo Atxaga

Ez genuen besterik egiten larunbat edo igande gauetan: jan, edan, **erre** eta hitz egin. Bernardo Atxaga

Martinek **erretzen** edo edaten baldin badu, ez da ezer pasatzen. Bernardo Atxaga

Hamaika bider esana nion **erretzeari** utzi behar ziola. Joan Mari Irigoien

Taberna eta jatetxeetan **erretzea** galaraziko du Erresuma Batuak. Berria - Gaiak

Orain kalera atera beharko dute **erretzera**. Berria - Harian

5 (era burutua izenondo gisa)

Emakume lehertuak eta ume **erreak** jasotzen. Koldo Izagirre

Ez da oilasko **errea**, baina jango dugu hau ere. Bernardo Atxaga

Arratsalde erditsutan, ateratzen zen, sardina **erre** zenbait eta beste zertxobait erosten zuen. Elena Touyarou

Espagetiak, haragi **errea**, ardoa, postre goxoak. Fernando Rey

Matatias lebitarra, Xalum koretarraren lehen-semea, zen beti opil **errea** egiteko arduraduna. Elizen arteko biblia

Sagar **erreari** ekin aitzin, Bordeleko arnoa ezpainetaratu zuen. Joan Mari Irigoien

Azukre **errearen** gustuaren arrasto bat. Juan Garzia

Bolbora **errearen** usaina zerion inguruneari. Joan Mari Irigoien

Egur **errearen** usaina. Anjel Lertxundi

Zintzurrean izigarriko erredura senditzen dut, burdin **erre** baten ausikia bezalakoa. Michel Oronoz

Harrizko pilare, adreilu **errezko** horma eta harlangaitzezko mehelinen laguntzarekin altuera handiak altxa daitezke. Santiago Iruretagoiena

Haragi **errezko** ogitartekoak dastatzeko postu ugariak nahiz multinazionalen hanburgeseriak. Jon Arretxe

Zer alde dago Pontotik Cádizera eta kolore **erreko** herri beltzetara? Xabier Amuriza

Honako gogoeta koxkor (eta **erre**) hauek. Iñaki Segurola

Goizean goiz esnatu gara, **lo errea** eginda. Javi Cillero

Lo errea uxatu ezinik, bere biluztasunaz harritua bezala, gaueko hamarrak zirela konturatu zen Zorayda Arraras. Iñaki Segurola

· Bazen baserritarrik, sua itzalitakoan, egur-**erre** puskak, erdi ikatz egindakoak, soroetan lurperatuko zituenik. Pello Zabala

Jakingura, deseroso eta lausoki gogo-**errea** sentitzen nintzen. Juan Garzia

6 (era burutua izen gisa)

Giro dago paseorako, eguzkiaren malda beherak ordu arteko **errea** arindu baitio beroari. Anjel Lertxundi

7 (era burutua izenondo gisa, irud/hed)

Eguzki **erreak** berotzen duen hegoaldeko eskualdeetan eraikinek irekiak izan beharko dute eta iparraldera edo ipar-ekialdera begira egon beharko dute. Santiago Iruretagoiena

Su bero gozagarria eta su **erre** kiskalgarria sumatzen dituela neregan. Patziku Perurena

1995an, udamin gogaikarria gertatu zen, **errea** eta iharra, dena kiskali zuenekoa. Pello Zabala

Gaztelako ordoki garai eta **errean**, aparteko estimazioa du ilgoratik ilbehera bitarteko ilargiaren argiak- Ekainaren 30ak, 37 gradu **erre** harrapatu zituen Gasteizen. Pello

Zabala

1981ean, ekainaren 5etik 22ra, ez ziren erraz aguantatzen penintsula mailan egin zituen beroak: bero **erre** zakarra 3 astean. Pello Zabala

Hosto **erreen** usaina nabaria zen. Anton Garikano

Horregatik iruditzen zait zuhurragoa dela adreilu **errea** erabiliz gastatzea, geretazko hormekin arriskuan egotea baino. Santiago Iruretagoiena

Zabalgunean molde zaharreko gelditzen diren azken ostatuetarik hautatu genuen, olio **errearen** eta ardo merkearen erresuma. Aingeru Epaltza

Bizpahiru hots **errek** erantzun zioten oihuari: [...]. Anjel Lertxundi

Hartarik deus ukigarririk gelditzen bazen, fits bilakatu zuen Kristinaren oihu txunditu-larderiatsu- **erreak** : [...]. Aingeru Epaltza

Potzolok keinu **erre** batez gaitzetsi zuen nire jakin eza. Aingeru Epaltza

Aita kaputxino batek hartu gintuen, zeina baitzen **erre** bezain jauzkor, eta hiros bezain haserrekor. Joan Mari Irigoien

Sudurzuloetan gora eta behera zebilkion arnasa gorri- **erreak** eragiten zion txistu hotsa aditu ahal nuen. Edorta Jimenez

Ederra da gizon honen zimeltasuna, larru- **erre** , lepo-ahul, izarretik izarrera egindako nekazaria. Koldo Izagirre

Pagano **erreen** fama daukagu bidenabar. Itxaro Borda

Bada tristura bat hezea eta **errea** , betea eta betegarria, bildua eta beltza, lurrari kendua dirudiena, kaotikoa, formagaldua, haragi-izpi guztiei gainez eragiten diena, itzal dardartien mendean eroria, ixila, sorra, haizerik egundo ibili ez den basamortuetan jaiotzen dena. Iñaki Segurola

Espero ez nuen jario zakar **erre** batez hartu zuen ostera hitza: [...]. Anjel Lertxundi

Orainaldi **errearen** errautsetan eraiki genuen Geroaren Paradisua, berriak jaioko zirelakoan. Joxerra Garzia

Ametsak **erreak** , etorkizuna oinarririk gabe. Gotzon Garate

8 (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Gainerakokan, oinaztuak nolako izaera daukan ondorioek erakusten dute, **erre** marka sakonak eta airean zabaltzen duten sufre usain nabarmenak. Xabier Amuriza

Erre -punttu batez adierazten zidan hori mutiko autista baten aitak. Xabier Olarra

Erre koloreko giza enda beltzen artean oso urrun, eguerdi aldean sortua. Xabier Amuriza

Gaua iritsi zen, urdin eta bero, baina begietako **erre** -hantura ematu baitzion. Juan Garzia

Belar txarrak erretzeko egin den sua itzali eta gero ere lurreko **erre** -arrasto beltzak luze dirauen bezala. Anjel Lertxundi

9 *erre-usain*

Erre-usaina ... 1771ko maiatzean, arratsaldearen erdian, abiada izugarrian zabaltzen da sutea San Petersburgon barrena. Jon Muñoz

Suak ez zien ezer egin gorputzean, ileak ere ez zitzaizkien kiskali, jantziak ukitu gabe zeuzkaten eta ez zerien **erre-usainik** . Elizen arteko biblia

Leihotik saiheski **erre usaina** dator. Eider Rodriguez

10 *erre-opari*

-Abereak eramaten utzi behar diguzu, geure Jainko Jaunari **erre-opariak** eskaini ahal izateko. · Orduan, agindu zuen: -Bete urez lau ontzi eta isuri **erre-oparigai** eta egurraren gainera. Jose Antonio Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldarean erre (6); **aldiz erre** (4); **arte erre** (4); **atera eta erre** (5); **aurrean erre** (6); **auto erre** (18); **auto erre dituzte** (5); **auto erre zituzten** (10); **autoa erre** (6); **autobus bat erre** (5); **baina erre** (6); **baino gehiago erre** (6); **bakarrik erre** (4); **bana erre** (4); **banderak erre** (7); **banderak erre zituzten** (4); **bat erre** (82); **bat erre da** (12); **bat erre eta** (6); **bat erre nahi** (4); **bat erre nuen** (4); **bat erre zen** (6); **bat erre zuen** (6); **bat erre zuten** (8); **batean erre** (9); **batzuk erre** (7); **begiak erre** (13); **berean erre** (5); **bero erre** (5); **bestea erre** (7); **bestea erre oparitzat** (5); **betazalak erre** (4); **bezala erre** (8); **bizirik erre** (11); **bota eta erre** (4); **da erre** (16); **da tabakorik erre** (5); **dena erre** (17); **denak erre** (8); **dira erre** (4); **dituzue erre** (7); **dituzue erre oparitzat** (6); **du erre** (8); **dute erre** (5); **edo erre** (8); **egin eta erre** (4); **egoitza erre** (4); **eguneroko erre** (12); **eguneroko erre opari** (8); **eguzki erre** (4); **eguzkiak erre** (4); **enbaxada erre** (4); **erabat erre** (9); **erabat erre zen** (4); **ere erre** (24); **ere erre zituzten** (4)

erre ahal (10); **erre ahal izateko** (4); **erre ahala** (4); **erre arte** (9); **erre artinoko** (4); **erre artinoko opila** (4); **erre aurretik** (4); **erre bat** (9); **erre baten** (4); **erre batez** (7); **erre behar** (39); **erre behar izan** (5); **erre beharko** (10); **erre beharrean** (15); **erre besterik** (4); **erre bitartean** (11); **erre da** (20); **erre dadin** (4); **erre daiteke** (5); **erre daitekeen** (9); **erre daitekeen edo** (4); **erre den** (5); **erre dira** (19); **erre ditu** (9); **erre dituen** (4); **erre dituzte** (22); **erre du** (8); **erre duen** (5); **erre dute** (12); **erre duten** (4); **erre edo** (16); **erre egin** (93); **erre egin dut** (4); **erre egin zela** (4); **erre egin zen** (13); **erre egin ziren** (4); **erre egin zituen** (5); **erre egin zituzten** (10); **erre egin zuen** (7); **erre egingo** (46); **erre egingo da** (6); **erre egingo ditiat** (4); **erre egingo ditu** (4); **erre egingo du** (6); **erre egiten** (87); **erre egiten da** (5); **erre egiten du** (17); **erre egiten zituzten** (4); **erre egiten zuen** (8); **erre ere** (10); **erre ere egin** (4); **erre erre** (5); **erre eta** (139); **erre eta erre** (14); **erre eta kiskali** (5); **erre ez** (15); **erre ezazu** (7); **erre ezin** (5); **erre gabe** (35); **erre gabeko** (5); **erre genituen** (5); **erre genuen** (5); **erre izan** (7); **erre izana** (8); **erre kixkildu** (7); **erre kixkildu dira** (5); **erre nahi** (48); **erre nahi izan** (6); **erre nuen** (17); **erre ohi** (10); **erre ondoren** (15); **erre opari** (47); **erre opari eta** (22); **erre opari gisa** (4); **erre oparia** (36); **erre oparia eskaini** (4); **erre oparia eta** (5); **erre opariak** (74); **erre opariak eskaini** (16); **erre opariak eskaintzeko** (6); **erre opariak eskaintzen** (4); **erre opariak eta** (28); **erre oparien** (23); **erre oparien aldare** (5); **erre oparien aldarea** (7); **erre oparien ondoan** (8); **erre oparietako** (6); **erre oparietako abereak** (4); **erre oparietarako** (7); **erre oparigaia** (5); **erre oparirako** (11); **erre oparirik** (6); **erre oparitarako** (8); **erre oparitarako abereak** (5); **erre oparitzat** (42); **erre oparitzat eskaini** (9); **erre oparitzat eskainiko** (7); **erre ostean** (4); **erre usain** (11); **erre usaina** (23); **erre zen** (34); **erre zen atzo** (4); **erre zenean** (5); **erre zidan** (4); **erre zion** (7); **erre zioten** (7); **erre ziren** (23); **erre zituen** (30); **erre zituzten** (76); **erre zizkion** (7); **erre zuen** (68); **erre zuenean** (4); **erre zutela** (6); **erre zuten** (49)

eskainiko dituzue erre (7); **eskua erre** (4); **eskuak erre** (5); **eta bestea erre** (7); **eta erre** (140); **eta erre egin** (20); **eta erre egingo** (6); **eta erre egiten** (5); **eta erre oparia** (7); **eta erre opariak** (10); **eta erre oparien** (4); **eta erre oparitzat** (4); **eta intsentsua erre** (5); **eta sutan erre** (5); **etxe bat erre** (8); **etxe erre** (10); **etxe erre zituzten** (4); **etxea erre** (19); **etxeak erre** (4); **ez erre** (13); **ezin da erre** (5); **ezin erre** (4); **ezingo da erre** (5); **eztarria erre** (4); **furgoneta erre** (4); **gehiago erre** (9); **gorpua erre** (6); **gorpuak erre** (5); **gutxiago erre** (5); **guztia erre** (10); **guztiak erre** (14); **haragi erre** (7); **hartu eta erre** (6); **hektarea erre** (12); **hektarea erre ziren** (6); **hiria erre** (6); **hori erre** (4); **horiek erre** (4); **horretan erre** (6); **hura erre** (4); **ibilgailu erre** (5); **ibilgailu erre zituzten** (5); **ikatza erre** (5); **inguru erre** (6); **inoiz erre** (6); **intsentsua erre** (22); **intsentsua erre eta** (5); **jaunari erre** (15); **jaunari erre oparitzat** (9); **nola erre** (4); **non erre** (4); **nork erre** (4); **ogia erre** (8); **ogia erre artinoko** (4); **okela erre** (4); **oparigaiak erre** (4); **osoa erre** (7); **osoki erre** (5); **paperak erre** (5); **pipa erre** (6); **suak erre** (7); **sutan erre** (21); **tabakoa erre** (7); **tabakorik erre** (11); **zen erre** (6); **zergatik erre** (6); **zigarreta bat erre** (5); **zigarreta erre** (4); **zigarro bat erre** (8); **zigarroa erre** (12); **zigarroa erre eta** (4); **zigarroak erre** (4); **zigarrorik erre** (4); **zuen erre** (10); **zuten erre** (4)

aldarean erreko (10); **asko erretakoa** (5); **azukre errearen** (4); **bat errea** (5); **bat erreaz** (6); **bat erreko** (8); **bat erreta** (5); **batera erreko** (5); **begiak erreta** (6); **bere ohorez erretako** (10); **bero errea** (6); **bizirik erreko** (4); **eguzki erreak** (5); **eguzkiak erretako** (4); **erabat erreko** (6); **errea eta** (22); **errea ez** (4); **errea izan** (15); **errea jatera** (4); **errea zuen** (4); **erreak eta** (7); **erreak izan** (12); **erreak izan ziren** (4); **errearen usain** (7); **errearen usaina** (14); **erreaz eta** (6); **erreen usaina** (7); **erreko ahal** (5); **erreko da** (4); **erreko den** (4); **erreko dira** (6); **erreko ditu** (6); **erreko dituzte** (7); **erreko dituzue** (4); **erreko dituzue jaunaren** (4); **erreko du** (11); **erreko dugu** (4); **erreko dut** (4); **erreko dute** (12); **erreko duzu** (5); **erreko ez** (5); **erreko nuke** (4); **erreta dago** (8); **erreta daude** (4); **erreta dauka** (4); **erreta eta** (5); **erreta hil** (12); **erreta hil ziren** (5); **erreta zegoen** (10); **erretako oparia** (17); **erretako oparia da** (8); **eta aldarean erreko** (6); **eta errea** (5); **eta erreak** (4); **eta erreko** (5); **eta erreta** (9); **eta erretako** (8); **etxeak erreko** (5); **gainean erreko** (4); **gorputza errea** (6); **gorputza errea izan** (4); **guztiak erreta** (5); **haize erreak** (4); **haragi errea** (9); **haragi errearen** (11); **jakingurak erreta** (5); **jaunaren ohorez erretako** (18); **labean erretako** (8); **liburu asko erretakoa** (5); **ohorez erretako** (30); **ohorez erretako oparia** (17); **oilasko errea** (9); **ondo errea** (5); **pazientziak errea** (12); **sagar erreak** (4); **suak erreta** (5); **sutan erreko** (8); **urdai errea** (4); **zigarro bat erreko** (4)

autobus bat erretzea (5); **auzia eta erretzea** (8); **bat erretzea** (14); **bat erretzea egotzita** (4); **bat erretzeagatik** (5); **bat erretzeko** (16); **da erretzea** (7); **dago erretzea** (4); **erretzea debekatu** (18); **erretzea debekatu du** (6); **erretzea debekatua** (4); **erretzea debekatuko** (7); **erretzea debekatuta** (7); **erretzea debekatzeko** (4); **erretzea debekatzen** (11); **erretzea debekatzen duen** (4); **erretzea egotzita** (4); **erretzea eta** (17); **erretzea galarazi** (5); **erretzea galarazita** (4); **erretzea galaraztea** (6); **erretzea zela** (4); **erretzeak ez** (4); **erretzeak sortzen** (5); **erretzeak sortzen duen** (4); **erretzeari ekin** (7); **erretzeari utzi** (19); **erretzeari utziko** (4); **erretzeari uztea** (5); **erretzeari uzteko** (17); **erretzeari uzten** (7); **erretzeko agindu** (8); **erretzeko agindu zuen** (4); **erretzeko agindua** (5); **erretzeko baimena** (5); **erretzeko debekua** (7); **erretzeko erabiltzen** (4); **erretzeko ere** (6); **erretzeko eskatu** (6); **erretzeko eta** (8); **erretzeko gogoa** (12); **eta erretzea** (10); **eta erretzeari** (5); **eta erretzeko** (18); **eta gasa erretzeak** (4); **eta intsentsua erretzeko** (4); **eta jatetxeetan erretzea** (4); **etxea erretzea** (4); **ez erretzea** (9); **ez erretzeko** (17); **gasa erretzeak** (4); **gasa erretzeak sortzen** (4); **hura erretzeko** (4); **intsentsua erretzeko** (15); **jatetxeetan erretzea** (5); **lantokian erretzea** (6); **lantokietan erretzea** (5); **leku publikoetan erretzea** (18); **ohorez erretzeko** (9); **publikoetan erretzea** (19); **publikoetan erretzea debekatu** (8); **sutan erretzeko** (4); **tabakoa erretzea** (21); **tabakoa erretzea debekatzen** (4); **tabakoa erretzeko** (4); **tabernetan erretzea** (5); **zaborra erretzeko** (4); **zigarro bat erretzeko** (4)

ari zen erretzen (4); **artean erretzen** (5); **asko erretzen** (5); **baino gehiago erretzen** (4); **bakarrik erretzen** (5); **barrena erretzen** (6); **barrua erretzen** (4); **bat erretzen** (84); **bat erretzen ari** (21); **bat erretzen du** (4); **bat erretzen zuen** (4); **batean erretzen** (8); **begiak erretzen** (16); **belarra erretzen** (4); **berriro erretzen** (4); **bezala erretzen** (12); **da erretzen** (6); **du erretzen** (6); **dut erretzen** (13); **edo erretzen** (5); **erdia erretzen** (4); **ere erretzen** (10); **erraiak erretzen** (4); **erretzen ari** (178); **erretzen ari da** (5); **erretzen ari den** (10); **erretzen ari dira** (6); **erretzen ari nintzen** (4); **erretzen ari zela** (14); **erretzen ari zen** (46); **erretzen ari zirela** (7); **erretzen ari ziren** (34); **erretzen baitu** (4); **erretzen baitzituen** (4); **erretzen da** (8); **erretzen den** (11); **erretzen denean** (15); **erretzen dira** (10); **erretzen diren** (7); **erretzen ditu** (7); **erretzen dituen** (6); **erretzen dituzte** (18); **erretzen dituzten** (10); **erretzen du** (33); **erretzen duen** (18); **erretzen dut** (11); **erretzen dute** (18); **erretzen duten** (7); **erretzen duzu** (9); **erretzen edo** (6); **erretzen egon** (6); **erretzen ere** (7); **erretzen eta** (40); **erretzen ez** (26); **erretzen ez dutenek** (4); **erretzen harrapatu** (4); **erretzen hasi** (30); **erretzen hasi naiz** (4); **erretzen hasi zen** (10); **erretzen hasiko** (4); **erretzen hastea** (4); **erretzen hasten** (4); **erretzen ikusi** (8); **erretzen ikusten** (6); **erretzen jarraitu** (8); **erretzen jarraitu zuen** (5); **erretzen nau** (5); **erretzen ninduen** (4); **erretzen nuen** (7); **erretzen segitzen** (4); **erretzen zegoen** (4); **erretzen zen** (7); **erretzen zidan** (7); **erretzen zion** (11); **erretzen ziren** (7); **erretzen zituen** (21); **erretzen zituzten** (13); **erretzen zizkion** (7); **erretzen zuela** (8); **erretzen zuen** (50); **erretzen zuen bitartean** (6); **erretzen zuten** (25); **eta erretzen** (41); **eta erretzen ari** (7); **eta intsentsua erretzen** (6); **eta tabakoa erretzen** (4); **eta zigarroak erretzen** (6); **etxea erretzen** (5); **etxeak erretzen** (12); **ez du erretzen** (5); **ez dut erretzen** (13); **ez zuen erretzen** (6); **gabe erretzen** (8); **gazteak erretzen** (6); **gehiago erretzen** (14); **gehiegi erretzen** (6); **gutxiago erretzen** (5); **hartan erretzen** (5); **haxixa erretzen** (5); **intsentsua erretzen** (23); **kalamua erretzen** (5); **labean erretzen** (4); **liburuak erretzen** (5); **marihuana erretzen** (4); **mihia erretzen** (4); **nola erretzen** (5); **pipa erretzen** (25); **pipa erretzen ari** (5); **porroak erretzen** (4); **puru bat erretzen** (5); **purua erretzen** (9); **puruak erretzen** (11); **suak erretzen** (5); **sutan erretzen** (21); **tabakoa erretzen** (24); **tabakoa erretzen ari** (4); **zen erretzen** (7); **zigarreta bat erretzen** (11); **zigarreta erretzen** (7); **zigarretak erretzen** (10); **zigarro bat erretzen** (28); **zigarro erretzen** (14); **zigarroa erretzen** (26); **zigarroa erretzen ari** (9); **zigarroak erretzen** (22); **ziren erretzen** (5); **zuen erretzen** (9)

bat erretzera (12); **erretzerik izango** (4); **eta erretzera** (5); **zigarro bat erretzera** (10); **zigarroa erretzera** (5)

---

erreabilitazio ik **errehabilitazio**.

---

erreaferente *izond* prozesu aktibo batetik eratortzen dena.

Eredu horiek seinale eferentearen eta seinale **erreaferentearen** arteko alderaketan oinarritzen ziren. Josu Zabaleta

Seinale eferente bat igortzen da, eta ikusleak seinale hori begiaren inolako mugimenduri ez dagokion seinale **erreaferente** batekin alderatuz, "mugitzen" ikusten du mundua. Josu Zabaleta

Informazio eferentea garunetik sentimen- eta mugimen-organoetara doan nerbio bidezko informazioari esaten zaio; informazio aferentea, kontrako zentzuan (organoetatik garunera) doan informazioari; eta informazio **erreaferentea**, nahita egindako mugimenduek eragindako sentimen-gertaerek emandako informazioari. Josu Zabaleta

---

erreaktibo **1** *iz* erreakzio kimiko bat eragiteko erabiltzen den gaia.

Nikelari erasotzeko baliagarri izan zitezkeen **erreaktibo** guztiak dosi berrogei aldiz handiagotan erabili behar ziratekeen. Juan Garzia

Lagin bat hartu zuen galdaratik, hozten utzi, eta **erreaktiboarekin** tratatu zuen. Juan Garzia

Publikatzeko lortutako **erreaktiboak** komunitate zientifikorako eskuragarri izan beharko dira. Berria - Gaiak

Bateriak energia metatzaile moduan ikusi beharko genituzke; sortaraz dezaketen energia bertan dauden **erreaktibo** kimiko batzuen kantitatearen menpe egongo da, eta **erreaktibo** horiek agortutakoan bateriak ez du energia gehiago sortuko. Berria - Gaiak

Ingeniaritza kimikoa gailentzen da gibelean eta hesteetan ere, prozesu konplexuak gauzatzen baitira gune horietan, tenperatura baxuan eta laborategian beharrezkoak liratekeen **erreaktibo** indartsuen beharrik gabe. Irene Aldasoro

Horrez gain, **erreaktibo** kimikoak eta erradioimunoanalisiak erabiltzen dira. Berria - Euskal Herria

Gertatu zenaren historia itxura hartzen hasia zen: arrazoiren batengatik, analistaren bat metodo akastsu batek tronpatu zuen, edo **erreaktibo** badaezpadako batek, edo ohitura desegoki batek. Juan Garzia

---

erreaktor ik **erreaktore**.

---

erreaktore *(ETCn **2.346** agerraldi; orobat **erreaktor** g.er.)* **1** *iz* erreakzio motorra.

Aireko mota horrek hiru **erreaktore** ditu eta berrogei bat bidaiari hartzen ahal ditu. Berria - Mundua

2 erreakzio motorra duen hegazkina.

-Hegazkin, aireplano eta **erreaktore**. Pello Zabala

Zeru urdinean apar txuria, **erreaktore** batena. Jon Alonso

Pista handitzea baztertu dute; beraz, hegazkin helizedunek eta **erreaktore** txikiek soilik jardun dezakete. Berria - Harian

3 fisio nuklearrak ekoitzi eta erregulatzeko instalazioa.

Uranioa aberasteko erabilgarria izango ez den arren, **erreaktoreak** bonba atomikoak egiteko plutonioa egin dezakeela ohartarazi zuten. Berria - Mundua

Txernobilgo (Ukraina) zentral nuklearraren **erreaktore** batek eztanda egin zuen. Berria - Gaiak

Erreaktoreak aireraturiko gai erradioaktiboetako batzuk milaka urteko bizialdia dute. Berria - Harian

Erreaktorea konponketa lanetarako gelditu behar zela baliatuta, proba bat abiatu zuten ingeniariek. Berria - Harian

1995etik itxita behar lukeen zentraleko materialen higadurak pitzadurak sortu ditu **erreaktorearen** barrualdean. Berria - Euskal Herria

Erreaktorearen estalkia suntsitu zuen leherketak, gai erradioaktiboak kanpora atera zituen, sumendi batetik bezala. Berria - Harian

Erreaktorearen inguruan bigarren sarkofagoa eraikitzeko 1.900 milioi dolar lortu dituela iragarri zuen bankuak. Berria - Harian

Fenomeno horrek **erreaktorearen** ontziaren egituraren sakoneko hondatzea sortzen du. Berria - Euskal Herria

Erreaktorearen nukleoaren zati bat urtu egin zen, diseinu akats batek eraginda. Berria - Harian

Erreaktoreko arrakalak konpontzeko metalezko adabakiak jarri dira. Berria - Harian

Japonia osoan, bestalde, 18 zentral nuklear daude, 52 **erreaktore** orotara. Berria - Gaiak

Fede osoa zuten diseinu berriko RBMK-1000 **erreaktoreetan**. Berria - Harian

4 (izenondo eta izenlagunekin)

1942an Enrico Fermi zientzialariak lehen **erreaktore** nuklearra eraiki zuen uranioa erabiliz. Berria - Gaiak

Atzoz geroztik, AEB Ameriketako Estatu Batuetako jostailuen, produktu elektronikoen, tomateen eta **erreaktore** nuklearren inportazioei zigorrak ezarriko dizkie Europako Batasunak. Berria - Ekonomia

Indiak IAEAren eredupean jarriko dituela, 2014a bitartean, martxan dauzkan edo eraikitzekotan dituen 22 **erreaktore** nuklearretatik 14. Berria - Mundua

Gizartea sorgailuen, motor elektriko eta turbinen mendean, **erreaktore** atomikoen eta erreakzio termonuklearren mendean sartu da. Felipe Juaristi

Europako Batasunak, Errusiak, Txinak, Japoniak, Ameriketako Estatu Batuak eta Hego Koreak osatzen dute ITER Nazioarteko **Erreaktore** Termonuklear Esperimentalaren egitasmoa. Berria - Gaiak

Txikia eta eramangarria izateaz gain, zigilatua dago eta **erreaktore** autonomoa du SSTARrek. Berria - Gaiak

Erreaktore berrien aurkako kanpaina. Berria - Gaiak

EAJk **erreaktore** zaharraren arriskua azpimarratu zuen; EBk, berriz, zentralak «zikloa» bete duela. Berria - Euskal Herria

Ur astuna egiteko **erreaktore** zientifiko bat eraikiko dute. Berria - Mundua

Makinak **erreaktore** kanalizatzaile bat du barruan, eta hara botatzen dute zaborra langileek. Berria - Gaiak

Fisioko **erreaktoreek** ez bezala, fusiokoa ezin da lehertu edo urtu. Berria - Gaiak

Ohiko **erreaktoreei** erregaia sartu behar zaie hainbatean behin. Berria - Gaiak

Ezbeharra gertatu ostean, Kansaiko Konpainia Elektrikoko teknikariek 50 zentimetroko diametroko zuloa atzeman zuten hirugarren **erreaktoreko** hodietako batean. Berria - Gaiak

Egungo **erreaktoreek** 1.000 megawatteko indarra sortzen dute. Berria - Gaiak

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

AEB Ameriketako Estatu Batuetan debekatutako Mark-1 izeneko oinarrizko euskarria dauka, eta irakite bidezko ur **erreaktorea** edota zuzenean Ebro ibaitik hartutako uraren hozte sistema erabiltzen du. Berria - Euskal Herria

Lehia bizia dago munduan etorkizuneko energia iturritzat jotzen duten lehen fusio **erreaktorea** eraikitzeko. Berria - Gaiak

Presio **erreaktore** berriak eraiki beharrean egungo zentralen segurtasuna hobetzeko eskatu diote Parisi. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dimonako erreaktore (5); **epr erreaktorea** (5); **epr erreaktoreak** (3); **erreaktore nuklear** (7); **erreaktore nuklearra** (9); **erreaktorea eraikitzeko** (3); **erreaktoreak eraikitzeko** (3); **eta erreaktore** (5); **europako presio erreaktorea** (4); **hirugarren erreaktorea** (3); **hirugarren erreaktoreko** (3); **presio erreaktorea** (4)

---

erreaktoretzar *iz* tamaina handiko erreaktorea.

Erreaktoretzarrak eraiki dira, egundoko laborategiak altxatu. Fernando Morillo

---

erreakzio *(ETCn **20.039** agerraldi; orobat **errakzio** g.er.)* **1** *iz* beste ekintza bati kontrajartzen zaion ekintza; ekintza bat ezeztatzea helburu duen erantzuna.

Ez lotsarik, ez kezkarik, irudi horiek jada ez dute jendearengan **erreakziorik** sortzen. Berria - Kultura

Antzezpenak ikuslearengan pizten duen **erreakzioari** deitu zion *katarsi* Aristotele filosofoak *Poetica* idazlanean. Berria - Kultura

Espero nuen **erreakzioa** izan du, baina ustekabean harrapatu nau hala ere. Anjel Lertxundi

Amak aitari begiratu zion, haren **erreakzioaren** beldur balitz bezala. Anjel Lertxundi

Operazioa aspalditik espero zuten Bretainian, eta bi **erreakzio** nagusi eragin ditu: kezka batzuen artean eta itxaropena besteen artean. Berria - Ekonomia

Erabakiak **erreakzio** ugari eragin zituen. Berria - Ekonomia

Galeraren aurrean, **erreakzio** helduagoa da dolua. Joseba Zulaika

K.o. 26an Pontzio Pilato erromatar prokuradoreak, isilean eta gauaren babespean, medailoietan enperadorearen irudia zeukaten erromatar zutoihal militarrak Jerusalemera sartu zituenean, juduen **erreakzioa** sutsua izan zen. Iñaki Mendiguren

Atzo Berlin, Kolonia eta Stuttgarten milioi erdi lagun manifestatu izanak erakusten du zein **erreakzio** eragin duen planak. Berria - Mundua

Turkiarekiko menia hautsi izana ez da gerra deklarazioa; **erreakzioa** da. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

"Zeloteen" **erreakzio** totalitarioa, bere adierazgarri tipikoak Sinesle Zaharren sekta fanatikoan aurkitu zituena. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroan Mendebaldeko Kristandadearekin topo egin zuten gizarteetan agerturiko **erreakzio** psikologikoei begiratu bat ematen badiegu. Iñaki Mendiguren

Hanekeren iritziz, egoera larri horren aurrean **erreakzio** desberdinak egon daitezke. Berria - Kultura

Honelako **erreakzio** latza ez litzateke lagungarri izango arazoa konpontze aldera. Iñaki Mendiguren

Durduzadura nabari zen batzuen aurpegietan, ez zuten imajinatu ere egingo beren **erreakzio** izutuek adoretu egiten gintuztela gu. Anjel Lertxundi

Abereetan **erreakzio** toxikoa gertatzen ari dela begi bistakoa izan daiteke. Berria - Gaiak

Heldugabearen **erreakzio** neurriz gainekoa. Aingeru Epaltza

Jesuiten eta erlijioaren aurkako **erreakzio** ikonoklasta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beraz horra hor lehenengo txinparta, trenean denetariko **erreakzioak** sortarazi dituena. Edorta Jimenez

Aitak ohiko **erreakzio** konpromisorik gabea erakutsi zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Beti hitz egokiak, **erreakzio** zuzenak, jokabide eredugarriak eskaintzen jardun behar hori. Anjel Lertxundi

Hala eta guztiz ere, bere **erreakzioa** neurrigabea iruditu zitzaidan. Bernardo Atxaga

Erreakzioa neurriz kanpokoa izan da, eta horrek agerian utzi du merkatuan dagoen urduritasuna. Berria - Ekonomia

Angelok egindako odolaren aipamen hark ez zidan ez kontrako ez aldeko **erreakziorik** eragin. Anjel Lertxundi

Halakoak dira psikopatak, ezusteko **erreakzioak** dituzte, libro bizi baitira, haizea den bizitza batean. Koldo Izagirre

Tupusteko **erreakzio** bat izan zen nirea, batere hausnarketarik gabea. Anjel Lertxundi

Kontu haiek ahapeka esateak badaezpadako **erreakzio** automatiko bat behar zuen izan. Anjel Lertxundi

Senezko **erreakzioa** izan zen, noski, egindakoa egin eta gero ez baitzuen uste emakumea han-hemenka ibiliko zenik aldakak kulunkatzen. Migel Angel Mintegi

Funtzionario paganoa eta Elizako Guraso kristaua elkartuta daude beren emoziozko **erreakzioetan**. Iñaki Mendiguren

Zenbait jarraibidez baliatzen da ezinezko **erreakzio** bat askatzeko. Fernando Morillo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zibilizazio erasotu batek izan ditzakeen **erreakzio**-mota alternatiboak. Iñaki Mendiguren

Sor eta lor gelditu nintzen, baina nire **erreakzio** ahalmen murritz eta berankorrari egotzi behar litzaioke hori. Xabier Mendiguren Elizegi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Probokazio honek garaiko zelote-**erreakzioa** eragin zuen, Makabeoen bi liburuetan agertzen den bezala. Iñaki Mendiguren

Bereziki arrakastatsua izan zen judu-**erreakzio** hori ez zen, hala ere, bakarra izan. Iñaki Mendiguren

Akzio-**erreakzio** kontutan maisuak gara hemen, baina alderantzizko emaitzak lortzen. Hasier Etxeberria

Presio horrek «gene eta proteinen kate **erreakzioa**» sortzen du. Berria - Gaiak

Kate-**erreakzio** hutsa da. Berria - Kultura

5 beste gorputz baten indarraren mendean dagoen gorputz batek lehen gorputzari egiten dion aurkako indarra; bi gai edo gehiagoren elkarrekiko eragina, ondorioz eraldatze kimikoak dakartzana.

Sagu batek botikarekiko duen **erreakzioak** eta gizakiarenak ez dute zertan bat etorri. Berria - Gaiak

Gugan gertatzen diren **erreakzio** kimiko etengabeek zerbait miragarriren jabe garela pentsatzera bultzatzen gaituzte. Berria - Kultura

Mendebaldeon, kimikaz eta fisikaz diharduen alderdi hau nutrizioak du aztergai eta gure desioetatik kanpo dauden **erreakzio** metaboliko gehienek [...] osatzen dute, zintzurretik behera "automatismoak" martxan hasitakoan. Edorta Agirre

Inork ez zuen bere burua beheitituko, Soriaren "txilibita" ikuste hutsak tripa barnean eragiten zizkion **erreakzio** kimikoak aitortzeraino. Aingeru Epaltza

Euren oinarria **erreakzio** elektrolitikoaren alderantzizkoa da. Berria - Gaiak

Lur hartzeko sistemak, goniografoak, hegaldia egonkortzeko sistemak, **erreakziozko** motor bat, garai hartan ametsezko gauza bezala hartu ziotena, jakina. Josu Zabaleta

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erreakzio-hegazkinek uzten zituzten kezko lerro ezin zuzenagoetan. Joan Mari Irigoien

Uranio horrek **erreakzio** kateari une jakin bat arte eusteko gai izan behar du, gero bat-batean lehertu eta bero izugarria askatzeko. Berria - Mundua

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fusio **erreakzioan** erabiltzen den erregaia deuterioa da. Berria - Gaiak

Fisio- edo fusio-**erreakzio** nuklearra sortzea eta kontrolpean izatea ahalbidetzen duen aparatua da erreaktore nuklearra. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako erreakzio (9); **aurkako erreakzio gisa** (3); **baina erreakzio** (3); **beste erreakzio** (3); **bi erreakzio** (3); **da erreakzio** (3); **den erreakzio** (3); **diren erreakzio** (3); **duten erreakzio** (3); **erreakzio ahalmen** (3); **erreakzio andana** (5); **erreakzio bat** (8); **erreakzio bezala** (3); **erreakzio bortitzak** (3); **erreakzio edo** (4); **erreakzio eragin** (8); **erreakzio eragin ditu** (5); **erreakzio eta** (5); **erreakzio gisa** (8); **erreakzio hegazkin** (3); **erreakzio hori** (4); **erreakzio horiek** (5); **erreakzio horren** (3); **erreakzio kimiko** (11); **erreakzio kimikoak** (3); **erreakzio moduan** (3); **erreakzio mota** (3); **erreakzio ugari** (9); **erreakzio ugari eragin** (6); **eta erreakzio** (17); **gure erreakzio** (3); **hainbat erreakzio** (9); **hainbat erreakzio eragin** (5); **izandako erreakzio** (6); **kate erreakzio** (3); **kontrako erreakzio** (8); **kontrako erreakzio gisa** (3); **zein erreakzio** (4); **zuen**

erreakzio (4)

erreakzioa da (6); **erreakzioa eragin** (10); **erreakzioa eragin zuen** (6); **erreakzioa ez** (3); **erreakzioa izan** (5); **erreakzioa zein** (3); **erreakzioak batasuna** (4); **erreakzioak eragin** (4); **erreakzioak ere** (3); **erreakzioak eta** (5); **erreakzioak iñ erreakzioak javier** (3); **erreakzioak jose** (3); **erreakzioak joseba** (6); **erreakzioak sortu** (4); **erreakzioak sortu zituen** (3); **erreakzioaren zain** (4); **eta erreakzioak** (3); **etena erreakzioak** (9); **haren erreakzioa** (5); **haren erreakzioak** (3); **igo** (3); **izan zen erreakzioa** (3); **kate erreakzioa** (6); **kontrako erreakzioa** (3); **lehen erreakzioa** (3); **lehenengo erreakzioa** (3); **lehenengo erreakzioak** (3); **nire erreakzioa** (3); **nire erreakzioak** (5); **p erreakzioak** (28); **su etena erreakzioak** (9); **z erreakzioak** (57); **z erreakzioak batasuna** (4); **z erreakzioak javier** (3); **z erreakzioak joseba** (5); **zen erreakzioa** (3); **zituen erreakzioak** (3); **zuten erreakzioa** (3)

---

erreakziogai *iz* erreakzio kimikoetan erabiltzen den gaia.

Bazen lan-mahai lauzatu bat, beirontziteria gutxi bat, **erreakziogaiak** zeuzkaten hogei bat flasko, hautsa ugari, amarauna ugari, argia eskas eta hotza abondo. Juan Garzia

---

erreakzionarazi, erreakzionaraz, erreakzionarazten du *ad* erreakzionatzera behartu.

Erabateko matematikari batek bezala **erreakzionarazten** du. Jon Muñoz

Analogia horren haritik gogo-egoerak honela identifikatuko lirateke: S egoeran dagoen subjektuari I estimuluaren aurrean O erara **erreakzionarazten** dion funtzio bitartekaria. nNi naiz zinkari **erreakzionarazten** dion zikinkeria, ni naiz gatz ale eta ziape garaua. Askoren artean

Gauza batzuetan, pentsarazi egin digutelako; beste batzuetan, **erreakzionarazi** egin digutelako; eta beste batzuetan formulazio berriak bilatzera eraman gaituztelako. Berria - Kultura

---

erreakzionario *(ETCn **474** agerraldi; orobat **erreazionario** g.er.)* **1** *izond* tradizioak, gizarte eta ekonomia egiturak bere horretan uzteko joera duena. ik **kontserbadore**.

Diskurtso oportunista eta **erreakzionarioaren** lekuko ederra da erantzun mota hori ikuspegi kritikodunentzat. Iñaki Heras

Zutabe interesgarri bezain **erreakzionario** batean. Iban Zaldua

Frantses aldizkari **erreakzionario** batzuk irakurriak zituen, eta munduaren erdi-erdian zegoela iruditzen zitzaion. Josu Zabaleta

Unamuno-ren *Vida de don Quijote y Sancho*, espainolismoaren gogo-jardunak nolabait, izkribu distiratsu bat da, eta eusko seme batek sekula idatzi duen obrarik **erreakzionarioena** izatetik oso urruti ez da ibiliko. Joxe Azurmendi

Gorrotagarria gertatzen zitzaidan erlijio katolikoak historiaren prozesuan jokatu zuen paper **erreakzionarioa**. Rafa Egiguren

Zientziak ez du zerikusirik horrekin; ez da kristaua, ez da ateoa, ez iraultzailea, ez **erreakzionarioa**. Josu Zabaleta

Baina ez Ilustrazioaren garapen eta gaindipen gisa, *à la* Herder edo Hegel, ezpada haren ukazio **erreakzionario** soila. Joxe Azurmendi

Einstein «mistizismo **erreakzionarioan**» babestu zela esan zuen Galindok. Berria - Harian

Fraintzik iraultza politikoa egin du, baina intelektualki **erreakzionarioa** izaten jarraitzen du barrendik. Patziku Perurena

Herriaren arima kontserbakoiak ez dizu anbiguitaterik, absolutuki **erreakzionario** garbia da. Joxe Azurmendi

Izugarri **erreakzionarioa** da, zeren gure guraso eta aiton-amonen liburutegiek ere horretarako balio baitzuten, neopalioak gehiegizko karga eduki ez zezan. Jon Alonso

Hemengo aldarrikapena ez da **erreakzionarioa**. Berria - Kultura

Zuzenbide ikasketak utzi berriak zituen **"erreakzionarioak"** zirelakoan. Aingeru Epaltza

Izurrite **erreakzionarioa** da. Bernardo Atxaga

Kasernan jantzita oheratzen ginen lotarako ahaleginean, jakin barik gau erdian Poloniara bidean jarriko ote gintuzten indar **erreakzionarioak** zapaltzera. Urtzi Urrutikoetxea

Erresistentziaren beste zati bat fanatiko **erreakzionarioek** osatzen dute. Berria - Harian

Alderdiok, Victor Hugok ez ditu gaur topikoa den legez balioetsi, liberalak progresista bezala eta karlistak **erreakzionarioak**. Koldo Izagirre

Inor ez da besterik gabe, hau da, arrazoi pribaturik gabe, jeneral-buru, edo anarkista, edo sozialista, edo **erreakzionario** egiten. Matías Múgica

Orixe baserrizale baserritarra baino hagitz **erreakzionarioagoa** da Finkielkrautek obra honetan ageri duen unibertsoa. Joxe Azurmendi

• **2** *iz* joera erreakzionarioak dituen pertsona.

Puntu horretan **erreakzionarioa** naizela aitortu beharra dut, baina ez erradikala, jakina. Karlos Zabala

Hegoaldeko mozkor bat, iritzi politikoetan **erreakzionarioa**, jokamoldeetan aristokrata eta irudimenean espektrala. Oskar Arana

Horrela deitzen zioten **erreakzionarioa** zelako. Fernando Rey

Bere tertulian atzerakoiak eta **erreakzionarioak** biltzen zituelako. Fernando Rey

Agian otso bat edukiko genuke ardilarruaren azpian, zinezko **erreakzionario** bat. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erreakzionarioa zen (5)

---

erreakzionatu, erreakziona, erreakzionatzen *(ETCn **5.563** agerraldi; orobat **erreazionatu** g.er.)* **1** du *ad* modu jakin batez aritu estimulo bati erantzutean.

Jonathanek, txunditurik, ez zuen **erreakzionatu**. Jon Muñoz

Erreakzionatu ezinik utzi nau, ez bainuen horrelakorik espero. Anjel Lertxundi

Harri eta zur geratu nintzen, ezin **erreakzionatuta**, hiru gizonak Erniora igotzen ikusten nituen bitartean. Juan Luis Zabala

Espero dezagun estatuak ere **erreakzionatzea**. Berria - Harian

Kosta zitzaion **erreakzionatzea**, eta egin zuenean, funts gutxirekin egin zuen. Migel Angel Mintegi

Prezioen beherakadak, gainera, iraunkorra eta handi samarra beharko du izan, eskaintza **erreakzionatzen** has dadin. Koro Navarro

Barre-irudi batekin **erreakzionatu** zuen nire laudorioaren aurrean. Bernardo Atxaga

Bere burua estu eta larri ikusi zuen unean **erreakzionatu** zuen, beste behin, eta duen onena emanda irabazi (22-21). Berria - Harian

Ikazkinak **erreakzionatu** zuenerako, neska hilik zetzan eta hiltzaileak, berriz, ihesi zihoazen. Martin Anso

Gol bat sartzen dietenean ez dira **erreakzionatzeko** gai. Berria - Kirola

Ero baten moduan jardun nuen, ez nion **erreakzionatzeko** aukerarik eman. Anjel Lertxundi

Liga amaitzen ari delako, **erreakzionatzeko** denborarik ez dagoelako. Berria - Kirola

Gure tropak Renanian sartu dira eta Alemaniaren etsaiek ez dute **erreakzionatzeko** astirik izan. Anjel Lertxundi

Begiak argi-fluxuaren aurrean **erreakzionatzen** du, funtsean. zelula horietako batzuek mugimenduaren noranzkoaren arabera **erreakzionatzen** dute: beste batzuek, mugimenduaren lastertasunaren arabera. Josu Zabaleta

Halako sindromeak dituzten gaixoek joera dute bat-batean eta trabarik gabe **erreakzionatzeko** inguruan edo beren baitan duten edozeren aurrean. Xabier Olarra

Neskak hasieran arrastaka mugitu behar izan bazuen ere, segituan errobot baten moduan **erreakzionatu** zuen Josebak. Fernando Morillo

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Maelek, harridurak eraginda, berandu **erreakzionatu** zuen, eta ezin izan zuen gertatutakoa galarazi. Joanes Urkixo

Michael Ramírez kapitainak azkar **erreakzionatu** zuen. Fernando Morillo

Genitaletako feromonak oso azkar aktibatzen dira eta berehala **erreakzionatzen** dute. Luis Elberdin

Garaiz **erreakzionatu**, eta haien atzetik abiatu zen bera ere korrika. Aitor Arana

Erretinan argiaren aurrean lehenik **erreakzionatzen** duten egiturak bi motatako zelula txiki batzuk dira: konoak, argi bizitan funtzionatzen dutenak, eta makilak, argi moteletan abian jartzen direnak. Irene Aldasoro

Grekoek bortizki **erreakzionatu** zuten laugarren gurutzadako "frankoek" mende-erdi batez ezarri zieten Latindar Inperio zeritzanaren aurka. Iñaki Mendiguren

Baldekada ur hotz-hotza jaurti dioten kateme batek bezala **erreakzionatu** nuen. Anjel Lertxundi

Hasieran inork ez zekien nola **erreakzionatu**, nesken bularrak nola edo zerekin estali. Txema Ramirez de la Piscina

Nola **erreakzionatuko** luke nazioarteko komunitateak Israelek beste estatu bati erasoko balio? Berria - Mundua

Haren mezuek erakarri ez zituzten pertsonek bestela **erreakzionatu** zuten, eta erlijioan zein politikan kontserbadoreagoak bihurtu ziren. Berria - Gaiak

Honek, ordea, guztiz bestela **erreakzionatu** zuen: Faxismoarekin ez zen konprometitu, eta ongi **erreakzionatu** zuen arraza-legeen erreaktibora. Joan Mari Irigoien

Inguratzeko ekimena haren esku egonik, lasaitasunez jokatzen zuen, eta Hamidak, bien bitartean, ustekabean **erreakzionatu** behar izaten zuen. Patxi Zubizarreta

Ziztatzen gaituztenean bakarrik **erreakzionatzen** dugu. Berria - Kultura

Léak batzuetan zer-nolako bizkortasunez **erreakzionatzen** zuen ikusteak liluratuta zeukan Ruche jauna. Jon Muñoz

Iruindarrek ez zuten oso ondo jokatu lehen zatian, baina bigarrengoan ondo **erreakzionatzen** asmatu zuten, eta azkenean 30-22 nagusitu ziren. Berria - Kirola

3 kimikan, bi gai edo gehiagok elkarri eragin, gai berriak sortuz.

Potasioa, esan dudanez, sodioaren bikia da, baina are indar handiagoz **erreakzionatzen** du airearekin eta urarekin. Juan Garzia

Gatz hori, berez, usaingabea da, baina **erreakzionatu** egiten du nola edo hala larruarekin, beharbada keratinaren disulfuro-zubiak erreduzituz. Juan Garzia

Izan ere, [oxigenoa] molekula txiki jakin batzuekin **erreakzionatzeko** gai da, zenbait oliorekin kasurako, eta haien artean zubiak sortzeko, sare-ehun trinko eta beraz solido batean eraldatuz: halaxe "lehortzen" da, adibidez, liho-olioa eguratsean. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean erreakzionatu (3); **azkar erreakzionatu** (6); **baina erreakzionatu** (3); **bestela erreakzionatu** (3); **bezala erreakzionatu** (7); **erreakzionatu behar** (7); **erreakzionatu beharra** (4); **erreakzionatu du** (4); **erreakzionatu dute** (3); **erreakzionatu egin** (7); **erreakzionatu egin zuen** (3); **erreakzionatu eta** (6); **erreakzionatu ezinik** (9); **erreakzionatu ezinik geratu** (3); **erreakzionatu nahi** (3); **erreakzionatu nuen** (3); **erreakzionatu zuen** (30); **erreakzionatu zuten** (14); **erreakzionatuko ote** (4); **erreakzionatuko zuen** (4); **erreakzionatzeko astirik** (4); **erreakzionatzeko gai** (8); **erreakzionatzen du** (6); **erreakzionatzen duen** (4); **erreakzionatzen dugu** (3); **erreakzionatzen dute** (5); **erreakzionatzen dutenak** (3); **erreakzionatzen zuen** (4); **eta erreakzionatu** (4); **eta erreakzionatzeko** (3); **ez zuen erreakzionatu** (4); **ez zuen erreakzionatzen** (3); **nola erreakzionatu** (9); **nola erreakzionatuko** (20); **nola erreakzionatuko ote** (3); **nola erreakzionatuko zuen** (4); **nola erreakzionatzen** (8); **nola erreakzionatzen duen** (3); **ondo erreakzionatu** (4); **zuen erreakzionatu** (4); **zuen erreakzionatzen** (3)

---

erreal[1] **1** *izond* benetako existentzia duena.

Esentzia **errealik** ez dago edo holako zerbaiten atzetik behintzat ez dabil zientzia. Iñaki Segurola

Diru **errealak** eta diru idealak daude. Iñaki Iñurrieta

Sarean gertatzen ari den guztia aztertu nahi dugu, denbora **errealean**. Berria - Gaiak

Truke-tasa malguen bertute teorikoak eta bizio **errealak**. Koro Navarro

Sardiniarrei gure ekarpen **erreala**, eta ez birtuala, eskaini nahi diegu, auzi garrantzitsuei aurre egiteko, hala nola energia, garraioa, ingurumena, ogasuna. Berria - Mundua

Ekonomiaren aldagai **errealetan** (eskaria, jarduera, enplegua) geratzen da atzerriko kontuak doitzearen kostua. Koro Navarro

Soldatak, termino **errealetan**, alegia prezioen gorakada kontuan izanik, 1982. urteaz geroztik murriztuz joan direla. Iñaki Heras

Prezioen igoeraren eragina kenduz gero, hazkuntza **erreala** %1,7koa da. Berria - Ekonomia

Hemengoa lehen sozialismo **erreala** izan bazen, orain kapitalismo **erreala** da. Edorta Jimenez

Mugimendu **erreala**, itxurazko mugimendua. Josu Zabaleta

Aralar politika **erreala** eta praktikoa egiteko eta gobernuan eragiteko dago Legebiltzarrean. Berria - Euskal Herria

Iraupena: 62 minutu, joko **erreala** 30. Berria - Kirola

'Espazio **errealak**, fikziozko espazioak.'Eibarren 1.125 jo ukan ditu partida hunek oren bat baino gehiago ariz denbora **erreala**. Herria

Paper-xaflako emakumea ere higidura **erreal** baten itxura hartzen hasi zen; dantzan ari zela zirudien. Anjel Lertxundi

Nahiz egunero ez den norbait lintxatzen, lintxamendua, sinbolikoa edo **erreala**, hortxe dago beti, lozorroan, egiazko posibilitate bezala. Bernardo Atxaga

Espazioa "gure adimenaren oinarrizko kategorietako bat" da (Kant), mundu **errealaz** dugun esperientzia aplikatua. Josu Zabaleta

Mundu **erreal** bateko bi eskualde, alegia, zeruarena eta zerupekoa. Askoren artean

Uste dugunean fantasiazko munduan gaudela, autoreak beste aldera garamatza, gogorarazi nahirik-edo fantasiazko mundu hori existitzen bada, mundu **errealagatik** existitzen dela. Julen Gabiria

Arrazoia nuen, beraz, historia ez dela bizitza **erreala** esaten nuenean, literatura da, besterik ez. Jon Alonso

Oro da literaturako gai, eta Joanes artzain idealizatuaren atzean, artzain **erreal** asko dago (haragizko, pasiozko, gatazkatsu, zalantzakor, bizi...) begiratzen dakien idazle baten zain. Anjel Lertxundi

Trukeen alor **erreala** finantza-merkatuen gorabehera handietatik babestu, politika ekonomikoak zaindu eta defizita zuten herrialdeei NDFren baitan eutsi. Koro Navarro

Mendebaldeko Europan, diru-sarrera **errealen** hazkundea, 1970eko hamarraldiaz gero, enpleguaren hazkunde bereziki motel baten bidez lortu da. Koro Navarro

Egongaiztasun horren ondorioak zinez beldurgarriak izan daitezke ekonomia **errealarentzat** eta gizarteentzat. Koro Navarro

Espazioan, ordea, ez dago bakuna den gauza **errealik**; izan ere, puntuak [...] muga soilak dira, baina ez zati gisa espazioa osatzeko baliagarria den zerbait. Ibon Uribarri

Aldi batez, finantzen eremuko nagusitasunak bere oinarri **errealak** desagertu ondoren ere irauten du, hots, ekoizpenezko eta merkataritzazko oinarriak desagertu ondoren. Koro Navarro

Espazioa kanpoko begiespenaren forma besterik ez da (begiespen formala), baina ez kanpotik begiets daitekeen objektu **erreala**. Ibon Uribarri

Hizkuntza osatzen duten ikurrak ez dira abstrakzioak, gauzaki **errealak** dira. Isabel Arrigain

Lehengaien prezio **errealen** degradazioaren tesia [...] ez da gaur egun auzitan jartzen. Koro Navarro

Eskualde horretan, biztanleko errenta **erreala** 1960ko hamarraldiko berbera da ia. Koro Navarro

"Urriko iraultzak" [...], Estatu Batuetako inflazio-prozesua eta hartzekodunen espoliazioa eten nahi izan zituen (izan ere, interes-tasa **erreal** negatiboen biktima izan ziren 1970eko hamarraldian). Koro Navarro

Istorio **errealagoa** kontatu nahi izan duzu, nolabait esatearren? Berria - Kultura

Europar ekonomien bilakaera **erreala** kontuan hartuz gero (hazkundea, enplegua). Koro Navarro

Biharkoak, bihar **erreal** batekoak, ziur gertatuko direnak. Lourdes Oñederra

Zenbaki **errealen** multzoan, ezin zen zenbaki negatibo baten erro karratua atera. Jon Muñoz

· Bigarrenaren atzean beti subjektu bat dago, **erreala** zein asmatua, harietatik tiraka. Anjel Lertxundi

2 (izan aditzarekin)

Errealitatea ere ez da **erreala**. Joseba Sarrionandia

Osasun zerbitzuen arabera, kopuru ofizialak ez dira **errealak**, bederen %20 gehiago erantsi beharko litzaizkieke. Berria - Euskal Herria

Literaturan aipatzen den edozein hiri imaginario erreal bihurtzen da irakurleentzat eta **erreala** den edozein hiri imaginario idazlearentzat. Berria - Kultura

James Matthew Barrieren bizitzan ere, berak asmatutako lurralde hori (gogoan izan: bizitzarako asmatutakoa eta gero liburura eramandakoa; beraz, ez fikziozkoa) beste edozein gauza bezain **erreala** zen. Julen Gabiria

Baina ondo zekien hura guztia **erreala** zela, Lisboako gizasemearen eta Pariseko neska horren istorioen oroimenak berunezkoak bailiran sentitzen zituen eta, barne-barnean. Iban Zaldua

Kontua da, euskaldunon "pluraltasuna", hots, komunitatea (**erreala** indibiduoa da!) inbentatua izan dela, ez daukala beste errealitaterik. Joxe Azurmendi

Nik historia bat asmatu nuen, besterik gabe, ez zen **erreala** . Antton Olano

Mitoa, funtsean, Eliadek eta erakusten zuten bezala, "egiazko ixtorio bat" da, egia da (**erreala** ez, baina egia bai). Iñaki Segurola

Badirudi ahalgarria denaren kopurua **erreala** denaren kopuruaren gainetik handi daitekeela, lehenari zerbait erantsi behar baitzaio bigarrena osatzeko. Ibon Uribarri

Lurralde magikoa baina guztiz **erreala** , geroago ikusiko dugun bezala. Julen Gabiria

"Alegiazkoaren", "asmatuaren" sinonimoa da ia-ia, eta **errealaren** kontrakoa. Josu Zabaleta

3 *ez-erreal*

Zenbait ekonomilarik, ironiaz, kasino-ekonomia esaten diote ekonomia **ez-erreal** horri. Iñaki Heras

Gerra-kazetaria izan eta Florida hotel bonbardatuan halako bizimodu **ez-erreal** bat bizi zuen, hantxe, kanpo kazetarien artean, Nazioarteko Brigadetako ofizialen artean, turisten artean, emagalduen artean. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alternatiba erreala (5); **aukera erreala** (3); **baitan erreala** (3); **bat erreal** (3); **bertan erreala** (3); **bezain erreala** (8); **bi erreal** (4); **bizitza erreala** (10); **biztanleko errenta erreala** (3); **bortz erreal** (3); **da erreala** (13); **dela erreala** (5); **erreal bakarra** (4); **erreal bat** (17); **erreal batean** (3); **erreal batek** (4); **erreal batekin** (5); **erreal baten** (6); **erreal bati** (4); **erreal eta** (16); **erreal gisa** (6); **erreal hori** (5); **erreal horiek** (3); **erreal horren** (3); **erreala baino** (3); **erreala bere** (3); **erreala bihurtzen** (4); **erreala bihurtzen da** (3); **erreala da** (26); **erreala dela** (3); **erreala den** (13); **erreala edo** (4); **erreala eta** (22); **erreala ez** (7); **erreala izan** (15); **erreala zen** (5); **errenta erreala** (5); **eta erreala** (7); **ez da erreala** (8); **ez dela erreala** (5); **ez erreala** (4); **gauza erreal** (6); **gauza erreal eta** (3); **gauza erreala** (3); **guztiz erreala** (6); **hain erreala** (3); **hamar erreal** (3); **historia bizitza erreala** (3); **hori erreala** (4); **irudi erreala** (3); **joko erreala** (3); **kapitalismo erreala** (3); **kpi erreala** (6); **mugimendu erreala** (4); **mundu erreal** (5); **mundu erreala** (6); **objektu erreal** (9); **politika erreala** (3); **sozialismo erreala** (3); **zenbaki erreal** (3); **zerbait erreala** (8); **zerbait erreala da** (4)

aukera errealak (8); **baino errealagoa** (4); **bezain errealak** (3); **bi errealak** (4); **bi errealeko** (9); **bi errealeko txanpon** (4); **bizitza errealean** (12); **datu errealak** (3); **denbora errealean** (12); **dira errealak** (5); **diru errealak** (3); **donostiako errealak** (3); **egin nituen errealean** (3); **ekonomia errealaren** (4); **errealak baino** (6); **errealak dira** (14); **errealak diren** (3); **errealak edo** (3); **errealak eta** (5); **errealak izango** (3); **errealaren alineazioa** (8); **errealeko jokalaria** (3); **errealeko txanpon** (4); **errealik ez** (4); **espazio errealak** (5); **eta errealagoa** (3); **eta errealak** (6); **eta errealeko** (3); **gauza errealak** (4); **gauza errealen** (3); **guztiz errealak** (3); **irudi errealak** (3); **lehengaien prezio errealen** (3); **mundu errealean** (11); **nituen errealean** (3); **oso errealak** (3); **prezio errealen** (4); **soldata errealak** (4); **sozialismo errealaren** (6); **tasa errealak** (3); **tasa errealaren** (3); **tasa errealek** (3); **termino errealetan** (7); **truke tasa errealaren** (3); **zenbaki errealen** (7); **zientzia errealaren** (3)

---

erreal[2] *(orobat **errial**; ikus erreal[1] izenondoaren konbinatorian erreal[2] izenaren agerraldi maizkoenak) iz* zenbait diru unitateren izena.

Pobreek bost xentimo ematen dute; burgesek **erreal** bana; jaunek pezeta erdia; enperadoreek, printzeek eta poetek pezeta. Koldo Izagirre

Eta dena **erreal** batean. Txillardegi

Akabo **errealak** , akabo zurikoak, akabo urrezko ezkutuak; txiroki bizi zen ogiz eta gaztaz, eta bere katilu uraz. Juan Garzia

Berdin baitzait hogei **erreal** banan-banaka edo ogerleko batean. Patxi Ezkiaga

Urrezko hamar dukat eta berrogeita hamar **errealeko** poltsa emaiten zidala. Joan Mari Irigoien

Bi **errealeko** txanpon zuloduna. Joan Mari Irigoien

Koltxoia urratu eta koltxoiaren barruan ehun **errealeko** billeteak topatzen genituen. Harkaitz Cano

Dukatak urrezko eta **errealak** zilarrezko, zerezko uste duk direla zuriak? Edorta Jimenez

Hartu nituen osabaren poltsatik bi **erreal** zilarrezko, beztitu nituen beztimenda erantzi berriak, eta jaitsi nintzen beheiti, ostatuko jangelarat. Joan Mari Irigoien

Poltsikotik zilarrezko bi **errealak** atera, eta eskurat luzatu nizkion. Joan Mari Irigoien

Irailaz geroztik, brasildar **errealak** arazoak zituen, eta banku zentralak arazoak gainditzeko egiten zituen ahaleginen ondorioz, truke-erreserbak agortzen ari ziren. Koro Navarro

Oker zegoela esan zion bere nagusiari, xemaiko bana ez baina **erreal** -erdi bana balio zutela. Patxi Ezkiaga

---

errealdi **1** *iz* zerbait erretzen den aldia.

Hortakotz Soule anderearen aita Xemartinek bere asto pizkorrarekin erabiliz karrosa gotor bat Ibarrun gaineko etxetan biltzen zituen **errealdiak** . Herria

Goizean beste **errealdi** bat izan zen. Koro Navarro

Urtoki horiek denak, iturriak barne, zorrote ordez jario eskasean eta ttanttanka gelditzen badira, hortik pentsa, lurrak berak, eguzkiak taxugabe erre eta kiskalitakoan, zenbateko **errealdia** nozituko duen. Pello Zabala

Beren oporrak ere baziren noski, eta ez zuten, nire letra zarpaila konprenitzeko ahaleginean, eguzki-**errealdirik** hartu nahi. Jesus Mari Mendizabal

---

errealismo *(ETCn **2.870** agerraldi)* **1** *iz* errealista denaren nolakotasuna.

Ez, ez da ezkor izatea, errealista izatea da, ez da ezkortasun edo **errealismo** kontua. Berria - Kirola

Lasai gaude eta lasai egongo gara PSOEren energia politikan **errealismo** pixka bat dagoen neurrian. Berria - Euskal Herria

Errealismo morala, nolabaiteko errealitate moral objektibo bat existitzen dela defendatzen duen ikuspuntu metaetikoa da. Askoren artean

Sen onaren **errealismoa** : ez da munduak eskaintzen duen input-a ukatzen, ezagutza oro, nahiz eta soziala izan, esperientzian oinarrituta baitago. Askoren artean

Idealismo honi espazioa eta denbora beren baitan (gure sentimenetik beregainki) emandako zerbait gisa hartzen dituen **errealismo** transzendental bat kontrajartzen zaio. Ibon Uribarri

Mekanika kuantikoak adibidez -zerbait dakitenek aitortzen dute, ez dena dakien bulgarizazioak- ez du **"errealismorik"** : errealitate fisikoko elementuen errealitatea behatzearekin batean jaiotzen da. Iñaki Segurola

Lanaren banaketa proposatzerakoan, dinamika sozial berri bat bultzatu nahi dugu, gai hori **errealismoz** jorratu, gure duintasun kolektiboa berreskuratu eta gure gizartea norabide aurrerakoian bideratzeko. Iñaki Heras

Sindikatuei **errealismoz** jokatzera dei egin nien, baldintzatzen gaituzten muga ekonomikoen eta juridikoen baitan konpondu behar dugulako arazoa. Berria - Ekonomia

Baina epe laburrera **errealismoz** jokatzeak epe luzera Ekialde Hurbilera bakea eramango duela pentsatzea ez da errealista. Berria - Mundua

2 literaturan eta arteetan, natura eta bizitza diren bezala ematea helburutzat duen joera. ik**naturalismo**.

Errealismoa joera bat da, jarrera bat, iritzi bat, irudikapenaren definizio partikular bat, beraz, estilo jakin batean, eskola batean gauzatzen dena. Josu Zabaleta

Artearen historialariek eta kritikariek, horregatik, hainbat **errealismo** (hainbat eskola errealista) zerrendatu dituzte. Josu Zabaleta

Sinbolismoaren ikuspegi artistikoak bizkarra emana zien ordurako hala Zolak famatu zuen "naturalismo"ari nola Frantziako nobelagintzan nagusi ziren beste **errealismo** edo psikologismoaren joerei. Juan Garzia

Pedro Páramorena, bada, errealitate baten ispilu den aldetik, **errealismoa** da. Juan Garzia

Errealismoaren erreibindikazioa ere, mendebaldeko artean garrantzi handikoa izan den arren, ez dela horrenbestez unibertsala: izan dira eskolak irrealismoan, ez- **errealismoan** , surrealismoan kokatzen zirenak, edota Artea **errealismoaz** "haranztik" jartzen duen joera baten barruan kokatzen zirenak. Josu Zabaleta

Beste zenbait adituk diotenez, beste literatura joera zabalago batean kokatu behar da Raymond Carver, **errealismoaren** baitan, eta, zehatzago, super-**errealismoan**. Koro Navarro

Ez dago antz handirik, esate baterako, Courbet-ek XIX. mendearen erdialdean erreibindikatzen zuen **errealismoaren**, Sobiet Batasunean urte luzetan nagusi izan zen **"errealismo** sozialistaren", Italiako zinemagintzan 1945etik aurrera zabaldu zen "neorrealismoaren" eta XVII-XVIII. mendeetako holandar pinturaren inoiz aipatu izan den **"errealismoaren"** artean. Josu Zabaleta

Analogia ikusiari dagokio, itxurari, errealitate ikusgarriari; **errealismoa**, berriz, irudiak bideratzen duen informazioari dagokio, ulermenari, adimenari, beraz. Josu Zabaleta

Errealismoa, azkenik, gizarte-arauen multzo bat da, errealitatearen eta haren irudikapenaren arteko erlazioa arau horiek jartzen dituen gizartearentzat onargarria izango den modu batean arautzeko. Josu Zabaleta

Kontu handia izan behar da, beraz, ilusio, irudikapen eta **errealismo** kontzeptuak ez nahasteko, askotan elkarrekin oso lotuak badira ere. Iñaki Heras

Argi, beraz: tremendismoa duk **errealismoaren** muturra. Anjel Lertxundi

Literatura fantastikoa, Borgesek berak idatzi zuenez, **errealismoaren** itxurakeriak baino zaharragoa eta egiazkoagoa dela. Bernardo Atxaga

Niretzat ez zagok diferentzia handirik **errealismoaren** eta fantastikotasunaren artean, errealitatearen pertzepzio guztiak baitira apur bat fantastikoak, oso fantastikoak ez direnean. Mikel Hernandez Abaitua

Belaunaldi bakoitzak bere **errealismoa** sortzen du, ordura arteko edertasun ereduari kontrajartzen zaiona. Berria - Kultura

3 (izenondoekin)

Errealismo handiko marrazkia zen, oso amerikanoa, bere txikian xehetasun handikoa, harmaila, ate, berdegune, taberna, markagailu eta guzti. Karlos Linazasoro

Errealismo zuzenak, beraz, ez ditu kualitateak ukatzen -forma edo kolorea, esaterako-; esaten duen guztia hau da: nire aurrean dagoena gauza materialek, fisikoek, osatzen dute. Askoren artean

1975-1976an **errealismo** magikoa deskubritzen dut García Marquez-en *Cien años de soledad*ekin. Ana Urkiza

Errealismo sozialistarako atxikimendu gutxiegi, kosmopolitismo gehiegi eta kultura burgeserako arreta sobera sumatzen zioten Pasolini idazkariari. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aro komunistako errealismo (3); **errealismo berria** (3); **errealismo eta** (4); **errealismo kostunbrista** (3); **errealismo kritikoa** (6); **errealismo magiko** (5); **errealismo magikoa** (10); **errealismo sozialista** (6); **errealismo sozialistaren** (3); **errealismoa da** (3); **errealismoa eta** (7); **errealismoaren eta** (3); **eta errealismo** (6); **eta errealismoa** (9); **eta errealismoaren** (4); **komunistako errealismo sozialista** (3); **mendeko errealismo kritikoa** (3); **zen errealismo** (4)

---

errealista *(ETCn **3.491** agerraldi)* **1** *izond/iz* errealismoari dagokiona; errealismoaren aldekoa.

Artearen historialariek eta kritikariek, horregatik, hainbat errealismo (hainbat eskola **errealista**) zerrendatu dituzte. Josu Zabaleta

Errealitatearen imitazio optikoan oinarritzen diren estilo **errealisten** eta, estilizazio geometriko gisa ulerturik, errealitatearekiko erlazio ikusmenezko baino areago ukimenezko batean oinarritzen diren arte moduen artean. Josu Zabaleta

Bizitzaren ikuspegi **errealista** dut; hau da, ezkorra. Berria - Kultura

Irudi **errealista** ez da nahitaez errealitate-ilusioa eragiten duena. Josu Zabaleta

Errealitatea baino gauza **errealistagorik** egongo balitz bezala. Berria - Kultura

Grabatu zuri-beltz batean eszena **errealista** bat ikusarazten digu (geuk osatzen baitugu grabatu horren pertzepzioa, falta den guztia erantsiz, gutxienez, eta zenbaitetan baita irudikaturiko objektuen zati ezkutuak edo falta direnak ere). Josu Zabaleta

Berpizkundean Machiavellik ere, politikaz mintzatzean, jarrera erabat **errealista** erakutsi zuen. Askoren artean

Oroimena, berez, ez da inoiz zuzena, hitzaren zentzu **errealistan**. Xabier Olarra

Holokaustoa eta munduko II. gerla ezagutu balitu ez duk uste agian literatura **errealistagoa** idatziko zukeela? Mikel Hernandez Abaitua

Bai, bazakiat, orain esango duk berriz ere ari naizela ene obsesio **errealistekin**, baina nik ez diat ulertzen euskal idazle batzuek nolaz idatz dezaketen Suitzan biziko balira bezala. Mikel Hernandez Abaitua

Unibertsalik ez dagoela argudiatzen duen filosofoari nominalista esaten zaio; aurkako jarrera aldarrikatzen duenari, aldiz, **errealista**. Askoren artean

Arazoak arazo, nominalistak saiatu dira unibertsalik gabe azaltzen **errealistek**, hasiera batean bederen, hain erraz azaltzen dutena. Askoren artean

Gure arte hau axaletik baizik ezagutzen ez dutenek argazkilaria **errealista** mekaniko bat baizik ez dela uste dute. Josu Zabaleta

Idealista transzendentala **errealista** enpirikoa izan daiteke, eta beraz, deitzen zaion moduan, dualista bat. Ibon Uribarri

Hego Ameriketako **errealista** magikoak. Unai Iturriaga

Labankadarena eta odol jarioarena oso **errealista** izan zen, edozein kasutan. Harkaitz Cano

Ondo zekien hori Luis Buñuelek, begia bizar-labana batez ebakitzea ez baita, askok uste duten bezala, surrealista, amesgaizto oso **errealista** baizik. Harkaitz Cano

Goenagaren filma nahiko **errealista** izanik dekoratu artifizial gutxi erabiltzea hobetsi zuen Arretxe arte zuzendariak. Berria - Kultura

Eta hori guztia kontuan harturik, Carver super-**errealista** dela esan beharko dugu. Koro Navarro

2 errealismoz jokatzen duena.

Filologoak ez luke intelektual **errealista**, aurrerakoi eta arrazoizale merkea izan nahi, baina inolaz ere ezin egin dezakeena da bere baitan daraman su fedekalte hura ilauntzen uztea. Iñaki Segurola

Komeni da, nik uste, paradoxak beste baterako utzi eta, **errealistak** izanik, posible dena eskatzea. Bernardo Atxaga

Baikor izatea ondo dago, baina **errealista** ere izan behar da. Berria - Kirola

Baikorrek eta ezkorrek, eta, ez ahaztu, **errealistek**, nekerik ez duen kemenez adierazten dute nork bere iritzia. Josu Zabaleta

Tamalez, **errealista** izanik, ezarri ziren helburu horietan emaitzak lortzeko ez dago aukera askorik. Iñaki Heras

Bi aukera **errealista** bakarrak hauek dira: CDU-CSU-FDP koalizioa edo haien eta SPDren arteko elefante ezkontza. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina errealistak (4); **da errealista** (6); **errealista batean** (3); **errealista da** (7); **errealista dela** (6); **errealista ere** (3); **errealista eta** (3); **errealista ez** (4); **errealista izan** (11); **errealista izan behar** (3); **errealista izateko** (3); **errealista zen** (3); **errealistak direla** (3); **errealistak izan** (6); **errealistak izan behar** (6); **eta errealista** (4); **eta errealistak** (4); **ez da errealista** (5); **idazle errealista** (4); **modu errealistan** (3); **oso errealista** (4)

---

errealitate *(ETCn **48.292** agerraldi)* **1** *iz* erreala denaren nolakotasuna; gauza errealen multzoa.

Fantasia eta **errealitatea**. Iñaki Mendiguren

Errealitatea hori baita, dela hemen dela hegoaldean. Herria

Errealitatea ere ez da erreala. Joseba Sarrionandia

Are gutxiago nahastuko lirateke koadro bat eta haren argazkia, eta gutxiago oraindik koadro bat eta **errealitatea**. Josu Zabaleta

Errealitatea ez da ikusmenaren bidez ikasten, ikasketaren bitartez ikusten baizik, aurretiaz diseinaturiko eskema razional-matematiko baten betaurrekoekin behatuz. Askoren artean

Horrexek erakusten du ederki nola irudiak konbentzio bidez irudikatzen duen **errealitatea**, gizartean onargarri denari baitagokio konbentzioa. Josu Zabaleta

Zure **errealitatea** gaurtik biharko alda daiteke. Josu Zabaleta

Alde horretarik, haurrak itxuraldatu **errealitatea** bertze **errealitate** horren ezaugarri ere izan liteke: haurraren haurtasunarena. Joan Mari Irigoien

Nahia versus **errealitatea**. Ana Urkiza

Errealitatea bestelakoa izan zen. Ander Irizar

Txostenean proposatutakoa **errealitate** bihur dadin. Berria - Gaiak

Hirurek **errealitate** bat osatzen dute, bizitza bat, gogo bat, substantzia bat direlako. Imanol Unzurrunzaga

Errealitatea zulo hondargabe bat bertzerik ez balitz bezala, non hondoratzen bainintzen atergabe eta etengabe. Joan Mari Irigoien

Hau da, ez zegoela **errealitaterik**, **errealitate** baten edo mila **errealitateren** sorketa baizik. Bernardo Atxaga

Irudiaren bi **"errealitate"** horiek ez dute inola ere izaera bera, berez, zeren irudi hori, azalera plano baten zatia den aldetik, uki daiteke, lekuz alda daiteke, eta ikus daiteke; irudia hiru dimentsioko mundu zati bat den aldetik, ordea, ikusmenaren bidez baizik ez da existitzen. Josu Zabaleta

Arrazoimena da subjektu hori, **errealitatearen** eratzailea. Askoren artean

Errealitatearen alde arrotza argitzen saiatuz gainditukо dugu **errealitatearen** alde arrunta. Anjel Lertxundi

Funtsean, tragedia *poiesis* da, obra baten produkzioa, **errealitatearen** imitazioa, *mimesis,* baina ahaztu gabe ekintza ere badela. Askoren artean

Lehen ere ikusi dugu analogiaren kontzeptua, irudiaren eta **errealitatearen** arteko antzaren arazoa. Josu Zabaleta

Errealitatearen okerreko imajinarioa. Iñigo Aranbarri

Enpirismoan (Thomas Hobbes, John Locke, George Berkeley, David Hume), **errealitatearen** azken elementuak sentipenei heltzen zaizkien sentsazioen atomo enpirikoak dira. Askoren artean

Razionalismoan (René Descartes, Baruch Spinoza, Gottfried Wilhelm Leibniz), **errealitatearen** azken elementuak arrazoizkoak dira, gure baitan dauden jaiotzatiko ideiak. Askoren artean

Gobernuak emandako kopurua txikia da eta ez dator **errealitatearekin** bat. Berria - Gaiak

«Errealitateari aurre egiteko» dei egin die Bruselak bi aldeei. Berria - Ekonomia

«Errealitateari aurre egiteko» dei egin die Bruselak bi aldeei. Berria - Ekonomia

Deabrua, gaizkiaren irudi izaki, ez da **errealitate**, gabetasuna da, falta den zerbait. Xabier Kintana

Zenbat eta, alabaina, gauza gehiago pentsa baitezake pentsatzen duen izaki batek, hainbat eta **errealitate** edo perfekzio gehiago daukala ulertzen dugu. Piarres Xarriton

Bestaldeko mundu horretan sinesteak, **errealitate** hori onartzeko prest egoteak berak, indartu egiten du ilusioa. Josu Zabaleta

Era berean, gauza ideal horiek, lehenago irudimenezko eta itxura hutsak zituenak, oraingoan beren **errealitatean** aurkezten zaizkio, haien egiazko izaera ulertuz. Xabier Kintana

Errealitatera jaitsi, eta irtenbide baten bila jarraitu duzu gelan bueltaka. Rafa Egiguren

Branen marmarrek ostera **errealitatera** ekarri zuten. Joanes Urkixo

Ikaraldi batek itzularazi zuen **errealitatera**. Migel Angel Mintegi

'Vatikanoa inoiz baino urrutiago dago **errealitatetik** eta Ebanjeliotik. Berria - Gaiak

Erabat ulergarria zela premiarik larrienak asetzen ere aski lan zuen jende hark **errealitatetik** ihes egin nahi izatea. Imanol Zurutuza

Lehenengo ateak, sarrerakoak, isiltasunetik hitzera, **errealitatetik** fikziora, aspertasunetik poztasunera eramango gintuzke. Bernardo Atxaga

2 (pluralean)

Ikur linguistikoak, funtsean psikikoak izan arren, ez dira abstrakzioak; adostasun kolektiboaz ontzat emandako elkarketak -multzoan hartuak hizkuntza osatzen dutenak- burmuinean baizik lekurik ez duten **errealitateak** dira. Isabel Arrigain

Hiru **errealitate** hauek egiten dute giza espiritua Hirutasunaren antzeko. Imanol Unzurrunzaga

Errealitate horien gain euren balorazioa agertu zuten atzo sindikatuek, patronalak eta agintari ekonomikoek. Berria - Ekonomia

Horren aurrean, bildutakoek «gizarte eredu alternatiboa» bultzatu nahi dute, «langile klasearen **errealitate** berriei» erantzungo diena. Berria - Ekonomia

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez dago, ordea, **errealitate** esentzial, objetibo eta beregainik. Iñaki Segurola

Mamua izateari utzi eta **errealitate** fisikoa hartu zuen. Jon Alonso

Uste gabeko hitz horiek harritu ninduten eta denbora berean **errealitate** latzera itzularazi. Daniel Landart

Bazirudien zuen bisitaldiak ilusioa baino areago enbarazu egiten ziola, zuen presentziak bere nebulosa hartatik **errealitate** gordinera etorraraziko balu bezala. Jokin Muñoz

1982. urtean arazoaren datu globalak biltzen hasi ziren, eta **errealitate** kezkagarria aurkitu dute. Berria - Gaiak

Hain zuzen **errealitate** razional eta zientifikoaz gain mundua bestelako edertasunez beterik dagoela. Koldo Izagirre

Hizkuntza idatziaren **errealitate** fisikoa grafiak ematen digu. Iñaki Arranz

Hizkuntza, **errealitate** objektiboa eta aginduzkoa da hiztun bakoitzarentzat, eta lehentasun korrelatiboa eman behar zaio estudioan. Isabel Arrigain

Barneko esperientziari begira, beraz, denborak **errealitate** subjektiboa du, h[au] d[a], nik errealki daukat nire baitan denboraren eta bertan gertatzen diren nire determinazioen errepresentazioa. Ibon Uribarri

Errealitate ukaezina da hori gaur egun berarentzat ere. Joxe Azurmendi

Errealitate osoa bi poloren arteko oposizio eta borroka bezala ikustea. Joxe Azurmendi

Filosofo greziarrek ere lehenengo mementotik onartu egin dute beharrezkoa dela **errealitate** absoluturen bat egotea, guk antzemandako beste guztiak izateko parada eduki dezan. Askoren artean

Ez dago **errealitate** transzendentalik, bilatua den ongia unibertsal immanentea baizik ez baita. Askoren artean

Berezko desira naturala atsedena du, hots, **errealitate** perfektuagora iritsi nahi du. Imanol Unzurrunzaga

Jaungoikoa, beraz, existitzen da, egiazko **errealitate** gorena. Imanol Unzurrunzaga

Horrek ez digu bidea ematen aurreko guztia mitotzat edo literaturatzat hartzeko -**errealitate** filosofiko osoa begietan hartu nahi badugu, behintzat-. Askoren artean

Errealitate mediatikoa inoiz baino birtualago azaldu zen. Txema Ramirez de la Piscina

Asko bortxatzen al da doitasunaren makina, sofistena, **errealitate** politikoaren azterketa pragmatikoa izan zela gogoratzen denean? Askoren artean

Errealitate geografikoak, historikoak eta klimatikoak kontuan hartzen ditu, bere enpirismoa Platonengandik urrun baitago. Askoren artean

Zeren hizkuntza egoera, **errealitate** historikoari buruz, une jakin bateko **errealitate** historikoaren proiekzioa baita. Isabel Arrigain

Ereduak beharrezkoak dira, eta **errealitate** ekonomikoa azaltzeko baliagarri izan behar dute. Iñaki Heras

Kontuan hartu behar dugu Aristoteles bere gisa dualista zela, hau da, Platonek ez bezala, ez zituela **errealitate** egonkorra (absolutua) eta **errealitate** higikorra (erlatiboa) bereizten. Askoren artean

Bila dezagun Jaungoikoa bera den Hirutasuna betiko **errealitate** gorpuzgabe, aldaezinetan. Imanol Unzurrunzaga

Errealitate psikologikoan badaude gertakari, egoera eta gertaldi psikologikoak, hala nola, euria egingo duela uste dudanean egoera psikologiko batean nago. Askoren artean

Errealitate enpirikoan, ezaugarri dialektalak, isoglosoak eta isoglosa sortak izaten dira, eta ez hizkuntza kode monolitiko eta uniformeak. Isabel Arrigain

Globalizazioaren gakoak teleteknologiak dira (satelitea, diru elektronikoa, informatika, Internet, sare telematikoak, teknologia digitala, CD-Rom, DVD, **errealitate** birtuala, adimen artifiziala, bioinformatika eta beste horrenbeste). Askoren artean

Bi eratako ehundura-gradienteen berri ematen dutela irudiek: irudiaren gainazalarenak, ehunduraduna izaten baita gehienetan (papera, oihala), eta irudiak irudikatzen dituen gainazalena [...] **"errealitate** bikoitzaren" ideia. Josu Zabaleta

Sistema hau da hizkuntzalariari interesatzen zaion **errealitate** bakarra. Isabel Arrigain

Errealitate materialetatik espiritualetara, sentigarritik materiagabekora jauzi egiteko, arte liberaletara jotzen du, gramatikara zehazki. Imanol Unzurrunzaga

Min egiten duen **errealitate** politiko-soziala baztertzea. Ana Urkiza

Garbi jabetzen zen koloretako itzalen eta irudiondoen **errealitate** fenomenozkoaz. Xabier Olarra

Egungo utopia, biharko **errealitate**. Herria

Nire izatearen benetako **errealitatea** ezin atzemanezkoa dela. Xabier Kintana

Autore horien ustez gaur egungo **errealitatean**, metaforari buelta emanez, uharte horiek itsasoaren tamaina hartzen ari dira. Iñaki Heras

Nola den posible matematikak horren biribilki eta beteginki egokitzea **errealitateko** egite eta gertakariei, izanik matematikak esperientzia orotarik beregain den giza pentsamenduaren sorkari bat. Iñaki Segurola

Kanpoan, berriz, **errealitateko** bizitzan, arrotz, huts, hil eta hits aurkitzen zuen mundua. Xabier Olarra

Pertzepzioaren jarraitasuna eta egonkortasuna ezin esplika daitezke ikusmenezko pretzepzioak, ia automatikoki, ikusmenezko **errealitateari** buruzko jakintza bat lanean jartzen duela onartzen ez bada. Josu Zabaleta

Zinezko **errealitate** edota espiritualen kontenplaziorako. Imanol Unzurrunzaga

Soinuaren aldetik oso gertu dauden bi hitz lotzean, elkarren urrun kontsidera zitezkeen esanahiak ere lotzen ditu ustekabean asmatitzak, eta balizko **errealitate** ezkutu bat agerrarazten du. Iñaki Arranz

Zenbateraino da **errealitatea** lokabe gure teoriekiko? Askoren artean

Determinazio ontologikoa erabaki etikoaren korrelatua da eta bien artean **errealitate** beraren aurpegi bikoitza eratzen dute. Piarres Xarriton

Komeni ez zaizkion **errealitate** hurbilak. Jon Alonso

Mekanika kuantikoak adibidez -zerbait dakitenek aitortzen dute, ez dena dakien bulgarizazioak- ez du “errealismorik”: **errealitate** fisikoko elementuen **errealitatea** behatzearekin batean jaiotzen da. Iñaki Segurola

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ea zer **errealitate** mota duen espezie bateko gauzetan aurkitzen eta izendatzen dugun naturak edo izaera komuna. Askoren artean

Errealitate-maila berean. Jon Muñoz

Bigarren maila hau energia psikiko primarioa, **errealitate**-printzipioaren aginduetara, egituratzeari, kontrolatzeari eta, behar izanez gero, erreprimitzeari dagokiona da. Josu Zabaleta

Errealitate-efektua, errealtasun-efektua. Josu Zabaleta

Zentzu berean, Bazinek ere arrazoiz mantendu ahal izan du plano-sekuentziak hainbesteko **errealitate**-sentipena ematen duela non errealitatearen oso irudikapen modu berezi bat gertatzen baita hartan, beste irudikapenak baino absolutuagoa izateko aukera duena. Josu Zabaleta

Errealitate bainua. Iñaki Iñurrieta

Errealitate-aztarren pertzeptiboak eta psikologikoak: argazkiaren guztiak, eta horietaz gainera itxurazko mugimenduaren oinarri-oinarrizko eragilea. Josu Zabaleta

Errealitate-inpresioa zineman. Josu Zabaleta

Horren arrazoia ez da bilatu behar hark proposatzen dituen **errealitate**-irudikapen berrietan soilik. Juan Garzia

Zinemak oso **errealitate**-ilusio eraginkorra sortzen duela, denboraz eta bolumenaren ordezko onargarri batez, sakontasunaz, baliatzeko gai delako. Josu Zabaleta

Hori dela eta, balioaren nozioak, banako, entitate eta **errealitate** nozioak estaltzen ditu. Isabel Arrigain

Irakur genezake Napoliko pobreziaz txosten luze bat, ikus genezake telebistan hango arazo sozialei buruzko dokumentala, eta guztiarekin, ez genuke idazlanak agerian utzi duen **errealitate**-zimur horren berririk izango. Bernardo Atxaga

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Berdintsu ari gintezkeen beste edozein jardun izendatzaile edo **errealitate**-sortzailez. Iñaki Segurola

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntza **errealitatea**, denboratik kanpo, ez da osoa, eta ez dago gerta litekeen emaitzarik. Isabel Arrigain

Ereduak ez dira ekonomia **errealitatearen** sinplifikazioak. Iñaki Heras

Errealitate ekonomikoa giza **errealitate** konplexua izanik, ezinbestekoa baita taxuz aztertu ahal izateko ereduetara jotzea. Iñaki Heras

Gizarte **errealitatea** soilik hartu dugu kontuan, eta ez gertaera historikoa. Isabel Arrigain

7 errealitatean

Errealitatean edo praktikan oso garrantzitsuak diren aldagai eta gertaerak. Iñaki Heras

-Antonin Artaudek egia badio, ametsean gertatutakoa gertatu zen **errealitatean**. Bernardo Atxaga

Horrelako esperientziak biziki emankorrak dira elgar ezagutzen ikasten baita mitoak hautsiz eta **errealitatean** sartuz osoki. Herria

Gezurra izateak ez du esan nahi ez denik; gezurra izango da -dirua ere dena gezurra da-, baina bada, esistitzen da munduan, **errealitatean**, bizi gaituen ezinezko haran honetan. Iñaki Segurola

Errealitatean den bezala, eta ez gure irudimenaren arabera. Xabier Kintana

Frogaturik dago irudimenak benetakotzat uste izaniko gauza batzuk **errealitatean** ezinezkoak direla, esaterako, Jainkoa (gorets bedi!) gorputz bat edo gorputz baten barruko ahalmen bat izatea. Xabier Kintana

Errealitatean, ekonomia guztiak ekonomia mistoak direla esan daiteke, hots, aipatu bi sistemen elementuak dituztenak. Iñaki Heras

Gehienetan ez dira betetzen aipatu aurrebaldintzak **errealitatean**. Iñaki Heras

Ikusleak ez du uste ikusten ari dena bera errealitate denik [...], ikusten duena **errealitatean** existitu dela edo existitu ahal izan dela baizik. Josu Zabaleta

Gogoan izan behar duzu fisikaren arloan ere badirela **errealitatean** diren bezala ezin irakats daitezkeen gauzak. Xabier Kintana

-Antonin Artaudek egia badio, ametsean gertatutakoa gertatu zen **errealitatean**. **Errealitatean** merkatu gehienetan produktuak desberdinduta daude. Bernardo Atxaga

Toshiro zen **errealitatean**, ez Yukio. Bernardo Atxaga

Sarritan ekonomilariek erabiltzen dituzten ereduek kritika handiak jasotzen dituzte, ez baitira kontuan izaten, askotan, **errealitatean** edo praktikan oso garrantzitsuak diren aldagai eta gertaerak. Iñaki Heras

Horrela ote da **errealitatean**, gugandik kanpo? Josu Zabaleta

Errealitatean, alabaina, Ongiak ez du beti irabazten; zer egin orduan? Askoren artean

Hori Interneten bakarrik egin daiteke, gaur egun, honetarako baliabideak jartzen badira, bistan da, balizko **errealitatean** oinarritzen diren kidego birtualak sortuz. Pello Salaburu

Egiazko **errealitatean** kanpoko zein barruko organo guztien egoera, berbera da: arimaren jarduera guztietarako tresnak izatea. Xabier Kintana

Nola ikusten duzue herri indigenen etorkizuna? Honelako ekimenek indigenen **errealitatean** eragin dezaketela uste al duzue? Berria - Mundua

Honako Tratatu honek, bere osotasunean, beronen antzeko guztien antzera, Torah-ren zientzia bere **errealitatean** aztertzea du helburu. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ametsa errealitate (6); **ametsak errealitate** (9); **baina errealitate** (13); **baino errealitate** (7); **baino errealitate gehiago** (5); **bere errealitate** (23); **bere errealitate objektiboa** (11); **beren errealitate** (6); **beste errealitate** (36); **beste errealitate bat** (12); **beste errealitate batzuk** (5); **bi errealitate** (19); **bi errealitate horiek** (5); **da errealitate** (11); **dagoen errealitate** (5); **den errealitate** (25); **den errealitate bat** (8); **du errealitate** (5); **duen errealitate** (20); **dute errealitate** (12); **duten errealitate** (7); **egungo errealitate** (5); **ere errealitate** (7); **errealitate bakarra** (9); **errealitate bat** (85); **errealitate bat da** (18); **errealitate bat dela** (5); **errealitate batean** (5); **errealitate baten** (20); **errealitate batetik** (5); **errealitate bati** (6); **errealitate batzuk** (5); **errealitate bera** (5); **errealitate berri** (11); **errealitate berriak** (5); **errealitate bihurtu** (18); **errealitate bihurtzeko** (10); **errealitate bihurtzen** (9); **errealitate bikoitza** (9); **errealitate bilakatu** (8); **errealitate bilakatzen** (5); **errealitate desberdinak** (7); **errealitate edo** (7); **errealitate ekonomikoa** (5); **errealitate eta** (12); **errealitate ezberdinak** (7); **errealitate gehiago** (13); **errealitate gordin** (9); **errealitate gordina** (33); **errealitate gordinaren** (7); **errealitate gorena** (8); **errealitate gorenaren** (8); **errealitate hau** (7); **errealitate hori** (50); **errealitate horiek** (10); **errealitate horrek** (11); **errealitate horren** (22); **errealitate horri** (12); **errealitate juridiko** (5); **errealitate kultural** (5); **errealitate objektiboa** (50); **errealitate objektiboaren** (7); **errealitate oro** (12); **errealitate politiko** (16); **errealitate politikoa** (8); **errealitate sozial** (11); **errealitate sozial eta** (6); **errealitate soziala** (10); **errealitate sozio** (5); **eta errealitate** (69); **eta errealitate gehiago** (6); **eta errealitate horrek** (6); **gure errealitate** (8); **hainbat errealitate** (6); **hiru errealitate** (15); **hori errealitate** (11); **horiek errealitate** (5); **zen errealitate** (5); **zuen errealitate** (5)

ala errealitatea (5); **baina errealitatea** (28); **baina errealitatea bestelakoa** (7); **benetako errealitatea** (7); **bere errealitatea** (13); **beren errealitatea** (7); **da errealitatea** (30); **den errealitatea** (17); **du errealitatea** (11); **duen errealitatea** (14); **dugu errealitatea** (5); **dugun errealitatea** (9); **dute errealitatea** (10); **duten errealitatea** (5); **edo errealitatea** (5); **egungo errealitatea** (19); **errealitatea aintzat** (5); **errealitatea aldatu** (7); **errealitatea aldatzeko** (5); **errealitatea aldatzen** (7); **errealitatea baino** (8);

errealitatea baizik (5); **errealitatea bera** (7); **errealitatea bere** (10); **errealitatea beste** (8); **errealitatea beste bat** (5); **errealitatea bestelakoa** (16); **errealitatea bestelakoa da** (10); **errealitatea beti** (5); **errealitatea da** (32); **errealitatea dela** (7); **errealitatea den** (8); **errealitatea edo** (6); **errealitatea ere** (10); **errealitatea eta** (58); **errealitatea eta fikzioa** (12); **errealitatea ez** (32); **errealitatea ez da** (10); **errealitatea ez dela** (6); **errealitatea ezagutu** (5); **errealitatea ezagutzeko** (8); **errealitatea ezagutzen** (9); **errealitatea ezin** (5); **errealitatea ezkutatu** (5); **errealitatea ezkutatzen** (6); **errealitatea hobeto** (5); **errealitatea hor** (5); **errealitatea hori** (6); **errealitatea ikusi** (7); **errealitatea ikusteko** (6); **errealitatea islatzen** (5); **errealitatea izan** (5); **errealitatea kontuan** (6); **errealitatea onartu** (11); **errealitatea onartzen** (5); **errealitatea oso** (12); **errealitatea oso bestelakoa** (8); **errealitatea zein** (7); **errealitatea zen** (6); **eta errealitatea** (80); **euskal herriko errealitatea** (6); **fikzioa eta errealitatea** (5); **gizartearen errealitatea** (5); **gure errealitatea** (9); **hemengo errealitatea** (5); **herriaren errealitatea** (6); **herriko errealitatea** (7); **hori da errealitatea** (11); **tokiko errealitatea** (5); **zen errealitatea** (8); **zuen errealitatea** (6)

; **baina errealitateak** (13); **baina errealitatean** (9); **bat errealitatearekin** (6); **da errealitatean** (10); **da errealitatearen** (5); **dago errealitatetik** (5); **den errealitatearen** (7); **du errealitatearen** (7); **duen errealitatearen** (6); **duten errealitatearen** (5); **eguneroko errealitatetik** (5); **egungo errealitatera** (7); **errealitateak eta** (7); **errealitateak ez** (8); **errealitateak kontuan** (5); **errealitatean ere** (6); **errealitatean eta** (8); **errealitatean ez** (10); **errealitatean gertatzen** (5); **errealitatearekin bat** (15); **errealitatearekin zerikusirik** (8); **errealitatearekin zerikusirik ez** (6); **errealitatearen alde** (7); **errealitatearen alderdi** (5); **errealitatearen artean** (9); **errealitatearen arteko** (27); **errealitatearen aurrean** (6); **errealitatearen berri** (7); **errealitatearen eta** (37); **errealitatearen eta fikzioaren** (6); **errealitatearen ikuspegi** (5); **errealitatearen isla** (6); **errealitatearen ispilu** (5); **errealitatearen izaera** (5); **errealitatearen zati** (11); **errealitatearen zati bat** (6); **errealitatearen zentzua** (7); **errealitateari aurre** (13); **errealitateari aurre** (13); **errealitateari aurre egin** (5); **errealitateari aurre egin** (5); **errealitateari aurre egiteko** (5); **errealitateari aurre egiteko** (5); **errealitateari bizkarra** (7); **errealitateari bizkarra** (7); **errealitateari bizkarra ematen** (5); **errealitateari bizkarra ematen** (5); **errealitateari buruz** (6); **errealitateari buruz** (6); **errealitateari buruzko** (10); **errealitateari buruzko** (10); **errealitateari dagokionez** (5); **errealitateari dagokionez** (5); **errealitateari ez** (7); **errealitateari ez** (7); **errealitateaz hitz** (5); **errealitatera egokitu** (6); **errealitatera ekarri** (5); **errealitatera itzuli** (6); **errealitatera itzultzeko** (5); **errealitatetik abiatuta** (6); **errealitatetik at** (5); **errealitatetik kanpo** (19); **errealitatetik urrun** (11); **errealitatetik urruntzen** (5); **eta errealitateak** (15); **eta errealitatean** (15); **eta errealitatearen** (57); **eta errealitatearen artean** (6); **eta errealitatearen arteko** (23); **eta errealitateari** (5); **eta errealitateari** (5); **eta errealitatera** (5); **eta errealitatetik** (8); **ez errealitatean** (5)

---

errealizadore *iz* film bat, bideo bat edo telebista programa bat egiten duen pertsona.

Zuzendari, produktore, **errealizadore**, esatari... hori guztia nintzen ni. Joxerra Garzia

Fathi Akin **errealizadorearen** dokumental musikala ere ikusi ahal izango da. Berria - Kultura

Alex Ezkurdia *Goenkale*-ko **errealizadorea**, berriz, Garmendiak lan egiteko zuen beharrari eta ilusioari buruz mintzatu zen. Berria - Harian

Umberto Ecori gogoangarri iruditu zitzaion telebistetako **errealizadoreek** zenbateraino zaindu zuten Ingalaterrako Charles eta lady Dianaren arteko ezkontza. Txema Ramirez de la Piscina

Aramaiok zuzendaritza eta gidoigintza ikastaroak egin ditu eta **errealizadore** lanetan aritu izan da Euskal Telebistan. Berria - Kultura

Badira animazio zinemaren historian hainbat **errealizadore**, ikertzaile lanetan ere aritu direnak luze eta zabal, batez ere Europan 20ko hamarkadan, horrelako musika sintetikoa sortzen jardun zirenak, 60ko hamarkadan lehen sintetizadoreak merkaturatu baino lehen. Berria - Kultura

---

errealizatu, errealiza(tu), errealizatzen du *ad* bete, gauzatu.

Amets horiek egia bihurtzen direnean lanean **errealizatu** egiten garela esan dezakegu. Berria - Kirola

Hala ere, sekula ez duzu itota ikusten, ez dizu inongo kontu txarrik aipatzen; aitzitik, guztiz **errealizatuta** ageri da ama-paperean. Patxi Iturritegi

Gakoa honetan datza, gizarte-ekintza, zeinetan **errealizatzen** baitu gizakiak bere burua, askoz ere luze-zabalagoa dela, bai denboran eta bai espazioan, gizabanakoak lurrean izaten duen bizialdia baino. Iñaki Mendiguren

Ideala, ordea, adibide batean, h[au] d[a], agerpenean egikaritu nahi izatea egingaitza da, jakintsua eleberri batean **errealizatzea** ere egingaitza den bezala. Ibon Uribarri

Mina c-propietate fisikoarekin identifikatzen badugu suposatzen ari gara gainerako propietate fisikoek **errealizatzen** duten mina ez dela "mina" eta, jakina, ondorio hori ez dugu onartu nahi. Askoren artean

---

errealizatzaile *izond* errealizadorea.

Leherketa eztandatsu haiek plus koloretsu bat eman zioten programaren taxuari, **errealizatzaileei**-eta oso artistikoa iruditu zitzaiena. Karlos Linazasoro

Hori nabarmenago gertatzen da zineman, hartan, izan ere, **errealizatzailea**, zuzendaria eta obraren sortzailea pertsona bera izatea oso ohikoa baita. Josu Zabaleta

Zazpi urte luzez, Onda Vasca, Radio Miramar, cadena Cope eta Cadena Cien irratietan aritu izan da esatari, **errealizatzaile**, teknikari eta erredaktore lanetan. Berria - Kultura

Ibaia Euskal Herriko Ikus-entzunezko Ekoiztetxe Burujabeen Elkarteak, Euskal Produktoreen Elkarteak, Gidoilari Profesionalen Elkarteak, Euskal Aktoreen Batasunak eta **Errealizatzaile** Berrien Plataformak salatu dute Euskal Telebistak ez duela lege hori betetzen. Berria - Kultura

---

errealizatze *iz* betetzea, egitea, gauzatzea.

Pozarren etortzen dira gurera **errealizatze** horiek guztiak, Patri. Hasier Etxeberria

---

errealizazio **1** *iz* film bat, bideo bat edo telebista programa bat egitea.

Unai Iturriagak egin du gidoia, eta **errealizazioa** IKBrena da; produkzioa, berriz, AEKrena. Herria

Bideoen **errealizazioa**: Iker Arteaga. Berria - Kultura

Jakintza hori jakintza praktikoa bihurtzen da filmetan edo bideogintzan diharduten artista batzuentzat; batzuetan, hala ere, obraren sorkuntza eta **errealizazioa** baldintzatzen du, eta halakoetan ezin da alde batera baztertu. Josu Zabaleta

Errealizazio aldetik kamera gehiago jarri dira, eta horrek bizitasun handiagoa eman dio. Berria - Kultura

Espainiako *Gran Hermano, Confianza Ciega* eta telebistako beste reality show batzuretan **errealizazio** lana egin izan du. Berria - Kultura

2 gauzatzea, betetzea.

Literaturatzat baino filosofi adierazpentzat hartua izan arren, gizakiaren bizitzari eta **errealizazioari** buruzko hausnarketa sendoa ekarri zuen liburuak, Ez da gauza bera min hau egoera fisiko honekin identifikatzea, min hori egoera fisiko horrekin etab.; eta mina, oro har, bere **errealizazio** guztietan propietate fisiko berarekin identifikatzea. Berria - Kultura

---

errealki[1] *adlag* benetan, egiatan.

Barneko esperientziari begira, beraz, denborak errealitate subjektiboa du, h[au] d[a], nik **errealki** daukat nire baitan denboraren eta bertan gertatzen diren nire determinazioen errepresentazioa. Ibon Uribarri

Printze batek bere estatuan dirutza handiak biltzen baditu, dirua urria izan daiteke **errealki**, eta ugaria erlatiboki; adibidez, denboraldi horretan estatu horrek merkantzia asko ordaindu beharko balitu atzerrian, kanbioak behera egingo luke, nahiz eta dirua urri izan. Iñaki Iñurrieta

Peter, ahurrak huts geratu zenean, hilkutxan zetzanaren nortasunaz ohartu zen **errealki**. Itxaro Borda

Beltzaren desgraziazko desberdintasuna da, biak "naturalki" berdinak izatea, eta ez **errealki**. Joxe Azurmendi

---

errealki[2] *iz* gauza erreala.

Kontzientzia enpirikotik hutsera doan aldaketa mailakatua gerta daiteke, eta bertan bere **errealkia** erabat desagertzen da. Ibon Uribarri

Hautemapen indeterminatuak hemen emana izan den **errealkia** besterik ez du adierazten, eta gainera, oro har pentsatzeari soilik emana, eta beraz, ez agerpen gisa, ezta berbaitango gauza gisa ere (noumenon), baizik egitatean existitzen den Zerbait gisa. Ibon Uribarri

Agerpen guztietan **errealkiak** handitasun intentsiboa du, h[au] d[a], maila bat du. Ibon Uribarri

Ez dago txikiena den **errealkiaren** bereizketarik, ez agerpenean, ezta denboren handitasunean ere, eta horrela, errealitatearen egoera berria errealitate hori oraindik ez zen aurreko egoeratik sortzen da, bere maila amaigabe bakoitza zeharkatuz. Ibon Uribarri

Kanpoko sentsua bere baitan begiespenak nigandik kanpoko **errealkiarekin** duen harremana da jadanik, eta bere errealitatea, irudimenaren kasuan ez bezala, barneko esperientzia berarekin bereiztezinki loturik izatean besterik ez da funtsatzen honen ahalgarritasunerako baldintza gisa, hemen gertatzen den legez. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bertan errealki (3); **errealki oro** (3)

---

errealtasun *iz* erreala izateko nolakotasuna. ik **errealitate**.

Nik imajina dezakedan mundu literarioaren oinarrian beste batzuek imajinatu zuten errealitate literarioa dago, eta, mundu erreala deitzen dugun hori bezain erreala izanik, beste klase bateko **errealtasun** batez eraikitzen du bere existentzia. Anjel Lertxundi

Norak bere gorputzean behera irristatu zituen eskuak, begi eta masailetatik hasi, bularretan behera segi, eta orkatiletaraino, gorputzeko atal bakoitzaren **errealtasuna** sentitu nahirik. Anjel Lertxundi

Non amaitzen da errealitatea eta non hasi fikzioa? Julen Gabiriak ahotsa erdi urraturik ederki azaldu zuen hiri errealen asmakeria eta hiri asmatuen **errealtasuna**. Berria - Kultura

Artistak, berriz, barne-mundu bat deskribatzen du; objektuek eta gertakariek ez dute han inolako **errealtasunik**: giza gogoaren eraikuntza huts gisa agertzen dira. Juan Garzia

Suntsipen masiborako armen mehatxua arras handia izanda ere (ii. puntua), ez legoke mehatxuaren zantzu ebidentzialik; hau da, ez legoke mehatxuaren **errealtasunaz** (i. puntua) hitz egiterik. Berria - Gaiak

[Bazinek] irudikapenaren barruan **"errealtasun** gehiago" sartzeko baliabide gisa hartzen baititu eremu-sakontasuna eta perspektiba. Josu Zabaleta

Errealitate-efektua, **errealtasun**-efektua. Josu Zabaleta

Hirurogeiko hamarraldiko azken urteetako kritika "ideologikoarentzat", **errealtasun**-efektua berariaz erabili zuen irudikapenaren ideologia "burgesak", formaren lana ahaztu eta fikziozko errealitate batean txertatzea bultzatzeko. Josu Zabaleta

Errealitate-inpresioaren kontzeptuak eta **errealtasun**-efektuarenak argi erakusten dute, hitzen aukeragatik beragatik, zein zaila den arazo hau. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errealtasun efektua (4)

---

errealzale *iz* Real Sociedad futbol taldearen zalea.

Amona ez ezik, gurasoak ere **errealzale** sutsuak ziren. Joan Mari Irigoien

Ai, urrezko gol hura, 1981eko apirilaren 26an **errealzaleok** txapeldun egin gintuena...! Joan Mari Irigoien

-Eta zergatik ez beste bat niri, ni ere **errealzale** itsua naiz-eta? -esan zuen bigarrenak. Joan Mari Irigoien

---

errealzaletasun *iz* erreazale izateko nolakotasuna.

Hala ere, aita-amak arras diferenteak ziren arren, bazuten elkartzen zituen puntu bat: **errealzaletasuna**. Joan Mari Irigoien

Aitak ere umetatik edan zuen **errealzaletasunaren** mama gozo-garratza, aitonarekin eta amona Sinforosarekin. Joan Mari Irigoien

Amona ez ezik, gurasoak ere errealzale sutsuak ziren, hainbesteraino, non **errealzaletasunak** elkartu baitzituen biak. Joan Mari Irigoien

---

erreanimatu, erreanima, erreanimatzen du *ad* suspertu, bizkortu, indarberritu.

Atzean zihoan laugarren gaztea ere ez zela onik irtengo zirudien, baina sendagileek istripua gertatutako lekuan bertan **erreanimatu** ahal izan zuten. Berria - Euskal Herria

---

erreantz *izond* errearen antza duena.

Agian azkarregi joan naiz, harridurak arbindu baitu bere aurpegiko lur **erreantzean**. Pako Aristi

Belargabea, antzigar eta izozteek artilearena dirudien kolore beis zuhaila eman dioten lur **erreantza**-marroiaren ondoan zotal ezkoaren marroi ilun-biziaren gisa mugitzen dira dirdaitsu neskaren begi marroiak begi katiluen umeltasunean. Pako Aristi

Horma txuriak zarata egiten duela iruditzen zaio, bai, hormak: kilkerren soinu **erreantzekoa**! Pako Aristi

---

errearazi, errearaz, errearazten **1** du *ad* erretzera behartu.

Sasiapaizen hezurrak, berriz, beraien aldareetan beretan **errearazi** zituen. Elizen arteko biblia

Ehunka lagun atxilotu eta anitz **errearazi** zituen. Aingeru Epaltza

Iduri luke gibelera goazila lau mendez, hain zuzen 1609-1610 arte horretan, de Lancre kontseilariak **errearazten** zituelarik sorginak, bereziki Lapurdin. Herria

Hermann Broch-en *Virgilioren heriotza* liburuan, poeta handiak, hil-hurren, *Eneida* **errearazi** nahi du. Juan Kruz Igerabide

"Kexu zarete", diotse inkisidoreei, "Japoniako enperadoreak su hilean **errearazten** dituelako haren estatuetan diren kristau guztiak; baina hark honela erantzungo dizue: [...]. Iñaki Iñurrieta

· Afaria prestatu zien, legamigabeko ogia **errearaziz**, eta afaldu egin zuten. Elizen arteko biblia

Hamar zigarro **errearazi** baitzizkidan, bata bestearen ondotik, atsedenik ere eman gabe, bere aurrean. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Zertan egin nuen huts, zer nolako alferra nintzen, zenbat diru **errearazten** nion Agentziari ezerezen truke, nork agintzen zidan behar ez nuen tokian sudurra sartzea, hala segituz gero kasutik apartatu ez ezik, espioi-karneta ere kenaraziko zidala... Jon Alonso

---

errearo ik **ereiaro**.

---

erreazionario ik **erreakzionario**.

---

erreazionatu ik **erreakzionatu**.

---

errebajatu, errebaja(tu), errebajatzen da/du *ad* beheratu.

Gainera, egurra **errebajatua** zeukan eskua kokatzeko tokietan, helduleku modura. Bernardo Atxaga

---

errebal *iz* herri eta hirietan, bazterreko auzoa.

Hiritik kanpo zegoen **errebal** gris eta txiro bateko plaza arrunt batera heldu zela ikusirik, bertan iturri bat egon behar zuela iruditu zitzaion. Aritz Gorrotxategi

Horregatik heldu zen Francisco Franco bidez gurera, iragaten zen bazterretan "Hara, hor doa gure Kaudilloa!" esan zezaten, bere presentziaren ohorea eman nahi zion **errebal** xume osoari. Koldo Izagirre

Ibiltzera joaten naiz, nahiz **errebal** ilunetan, nahiz Paris inguruko basoetan, eta han entzuten ditut zelatari nire arreba piztiak eta nire anaia ezkutuko ehiztariak. Josu Zabaleta

Kalea errepide bihurtuz zihoan, eta gora egiten zuen adreilu gorriko etxe bizpahiru solairukoez mugatuta zegoen **errebal** itxurako paraje batean. Ramon Saizarbitoria

Auzo honetako jendeak ez du itxura onik, haurrak batez ere, hain daude zikinak, ezen ukitzeak ere nazka ematen baitu, **errebal** kume peto-petoak, sudurretatik mukia dariela. Josu Zabaleta

Fatxada estuan bi leiho dituen bi solairuko **errebal** -etxe txiki batean bizi dun. Anton Garikano

Eta orain Madrilgo **errebalak** dauden lekuan ikusi dut duela hainbat urte jendea ur bila joaten, ez dago espaloirik, ez dago porlanik. Harkaitz Cano

---

errebalida *iz* ikasketen amaierako azterketa.

Errebalidarik ez: Batxilergoko Titulua Batxilerra gainditzearekin batera lortuko dute ikasleek; ez dute bukaerako azterketarik egin beharko. Berria - Euskal Herria

Nire irakaslearen emaztea zen, hark bere etxera gonbidatu baininduen zenbait asteburutan, nire **errebalida** baino lehenxeago. Joxe Austin Arrieta

Errebalidarako ikasten ari nintzen arratsalde haietako batean, zerrenda sentimental berri bat osatzeari ekin nion. Bernardo Atxaga

Selektibitatea kendu, eta **errebalida** jarriko omen dute atzera berriz. Joxerra Garzia

Adrian berriro operatuko dute **errebalidako** azterketak bukatu eta gero -esan zidan. Bernardo Atxaga

---

errebalorizatu, errebaloriza(tu), errebalorizatzen da/du *ad* balioa handitu.

Analistek diote Ibex indizea %10 eta %15 artean **errebalorizatuko** dela. Iñaki Heras

---

errebaluatu, errebalua(tu), errebaluatzen da/du *ad* moneta baten truke tasa goratu.

Uztailean ekin zion kate horiek hausteari, 1994tik lehen aldiz yuana **errebaluatu** zuenean. Berria - Ekonomia

---

errebanja *iz ipar* errebantxa.

Otsailaren 18 an izanen da **errebanja** Arrangoitzen 4 orenetan. Herria

18.30 etan: Sorhaitz-Haroçarene/Latchere-Ithurralde (jazko finalaren **errebanja**). Herria

Horra beraz nola Asier Olaizola eta Zearrak irabazi duten beren lehen partidaren kittara edo **errebanja**. Herria

---

errebantxa **1** *iz* ordaina hartzea, mendekua.

Era horretan, ikuspegi historikotik, alderdi ekonomikoak alderdi sozial eta politikoei **errebantxa** hartu diela ematen du. Koro Navarro

Odola, izerdia eta malkoak beharrezkoak izan baditu ere, **errebantxa** hartu dio Armada Garaitezinak Albion Maltzurrari: salbu da eñea, ez da desagertuko. Iñigo Aranbarri

Agureak **errebantxa** eskatu zidan, beste egunen batean jokatzeko. Berria - Kultura

Ezegonkortasuna eta baztertzea dira, nola Iparraldean hala Hegoaldean, erregulaziorik gabeko integrazio honen fruitu garratzak, keynesianismoaren amaiera markatu zuten merkatuek estatuei hartutako **errebantxaren** fruituak. Koro Navarro

Ez zuen ahantzia ene eza eta sentiarazi zidan **errebantxa**. Piarres Aintziart

Errebantxa gisa Montgommery-k lau urtez Baxenafarroa gainditu zuen, Donibane Garazi eta inguruko elizak erre zituen. Michel Oronoz

Frantziako azken hauteskunde kantonaletan, sozial mailan lortu ez dena botoen bidez gauzatu da, patronalaren kontrako **errebantxa** modura. Berria - Euskal Herria

Handik ordubetera, lasterka zihoazen Irkutskeko bidean aurrera, Alcide Jolivetek aurretiaz **"errebantxaren** kanpaina" deitzen zuena errusiarren artean segitzeko asmotan. Karlos Zabala

Bourdieuk arrazoiaren bitartez hartu nahi izan zuen **errebantxa** soziala, eta arrazoia botere tresna gisa erabili zuen. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horrela saihesten zituen **errebantxa** eskariak -non irabazitako dirua berriro jokatu beharko zuen, alferrik eta nolanahi-, eta aldi berean baztertzen zituen Suschitzky andrearen purrustadak. Anton Garikano

Espainiako Gobernua galdu ondoren, **errebantxa** nahiak lagundu dio PPri. Berria - Euskal Herria

Beraz, **errebantxa** gogo txikia ere badugu. Berria - Kirola

Aldi berean, eskerron oharkabez, eta apika orobat **errebantxa** -irritsez, oraingoan berak hartu zuen nire hezkuntzaren ardura, eta eskas nenbilela ulertarazi. Juan Garzia

Borroka horrek **errebantxa** kutsua izango du, Federazio Kopan bi talde horiek izan baitziren finalean. Berria - Kirola

Espainiako Kopako finala jokatu zuten bi taldeek elkar ikusiko dute gaur, hiru aste geroago, **errebantxa** kutsuko partidan. Berria - Kirola

3 galtzaile gertatu denari irabazteko ematen zaion aukera. ik**errebanja**.

Emango didak **errebantxa**, nik. Anjel Lertxundi

Barredak **errebantxa** emango ziola adierazi zuen. Berria - Kirola

Nazabal-Larretxea **errebantxa** jokatuko da gaur Zeanurin. Berria - Kirola

Nahiz eta egin beharreko lana erabat desberdina izango duten bihar, aukeran dira orduko **errebantxa** jokatzeko. Berria - Kirola

Aleman prestu batek ez dik sekula **errebantxa** ukatzen. Anjel Lertxundi

Azken orduko ezbeharrak Eskuz Binakako finalaren **errebantxa** izan zitekeena bertan behera utzi du. Berria - Kirola

Udako torneoek berebiziko garrantzia hartu dute orain, eta deskuidoan eskuz banakakoan txapeldun edo txapeldunorde gelditu bazara, beti jarriko dizute **errebantxaren** bat. Berria - Kirola

Larretxeak eta Nazabalek lagunarteko **errebantxa** jokatuko dute eta Mugertza III.ak (15 urte) 2,50eko enborra ebakiko du. Berria - Kirola

Dynamos eta Bikainak-en arteko **errebantxako** partida. Koldo Biguri

Irunen oso alde txikiarengatik galdu nuen, baina horrek ez du **errebantxarako** gogo berezirik ematen. Berria - Kirola

Iazkoa ahaztu, eta **errebantxarako** asmorik ez dela erran du Svenssonek. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errebantxa hartu (4); **errebantxa jokatuko** (3); **errebantxa kutsuko** (3)

---

errebantxista *izond* errebantxa nahi duena.

Baina jokabide **errebantxista** eta totalitario horiek iragantzat edo beste inork egindakotzat hartzeko joera erakusten dugu beti: kanpokoa salatzeko bakarrik erabiltzen dugu oinutsik dabilen zakurrarena. Anjel Lertxundi

---

errebatiezin *izond* ezin errebatituzkoa.

Montseren amak aurrera eta aurrera ekiten zion, hitzari hitza zerraiola, harik eta bere disertazioa liburuen liburutik ateratako argudio ustez **errebatiezin** harekin bukatzen zuen arte: [...]. Joan Mari Irigoien

---

errebeindikatu ik **errebindikatu**.

---

errebel **1** *izond/iz* errebeldea.

4.000 gizon, osotara, Lüküzeren nafar eta zuberotarrekin eta biarnes **errebelekin** bat egin ondoan. Aingeru Epaltza

Lüküzeko kondearen baxenafartar eta zuberotarrak mendebaldetik, Sainte-Colome, Gerderest eta Peyreko baroien **errebel** biarnesak hegoaldetik. Aingeru Epaltza

Gure armadaren joan-etorrien berri ematen omen ziean **errebelei**. Aingeru Epaltza

Lehen lerroak **errebelaren** zurikeriak ziren, Joana Albretekoaren kolera eztitzeko. Aingeru Epaltza

Errebelen preso zeuden fedekide guztiak askaturik zeuden, orobat. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Ezker-eskuin eragin zion buruari, bere buru **errebelarekin** etsita. Anton Garikano

---

errebelagarri *izond* nabarmena.

Justiniano bera, Patuari aurre egin eta bere *Corpus Iuris*-aren barrikada izugarria aurpegira bota orduko, Amorruaren txakur nekaezinek herrestatu zuten paper-ehizan lasterka jarraitzera eta honela bere *Novellae*-en orri **errebelagarriekin** josi behar izan zuen ibilbidea. Iñaki Mendiguren

---

errebelamendu *iz* matxinada, errebolta.

Bilboko poliziak **errebelamendu** militarra leporatu zion Jose Ramon Goikoetxeari, eta prozedura sumarisimotik bideratu zuen auzia. Rafa Egiguren

Bere izeba, Adela Goikoetxea, hainbat espetxetan izan zen, «**errebelamendu** militarra egiteagatik». Berria - Euskal Herria

Nerabea nintzen oraindik, eta politikak garai horretan sentipenak, **errebelamendua**, idealismoa, ametsak, eskuzabaltasuna, mistizismoa, moral faltsuaren kontrako haserrea eta antzeko gauza asko bildu ohi ditu bere baitan. Rafa Egiguren

---

errebelatu, errebela(tu), errebelatzen da *ad* **1** matxinatu.

Afrikako ejertzitoa gobernuaren kontra **errebelatu** zela entzuten zen philips irratiaren parteetan. Joseba Sarrionandia

Bihurria haur bat izan liteke; hezigaitza eta managaitza kontzeptu negatiboak dira; mutiriak lotsagabezia adierazten du; errebeldea, aldiz, sistema baten kontrako jarrera aktiboa duena da, haren aurrean **errebelatzen** dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Nafarroako jendeak beren errege Feliperen eta beren aitasaindu Inozentzioren kontra **errebelatzera** etorria omen zen Iruñera. Aingeru Epaltza

Stonewall taberna ospetsuan poliziaren gehiegikerien aurka **errebelatu** ziren eguna da hain zuzen gaur denek gogoan dutena. Harkaitz Cano

Jeroboam, ordea, Daviden seme Salomonen zerbitzari zen Nebaten semea, bere nagusiaren aurka **errebelatu** da. Elizen arteko biblia

Errebelatu egin dira esklaboak! Elizen arteko biblia

B letra zen, isiltasunaren aurka **errebelatu** eta bere istorioa kontatzera zihoana. Bernardo Atxaga

Zoazte Betelgo santutegira nire kontra **errebelatzeko**, eta Gilgalera zuen errebeldiak ugaritzeko; eskaini goizero zeuen sakrifizioak, eta hiru egunero hamarrenak. Elizen arteko biblia

Baina printzea **errebelatu** egin da Babiloniaren kontra eta mezulariak Egiptora bidali zaldi eta soldadu askoren bila. Elizen arteko biblia

Postaletako Donostia hura simulakroa zen, jarraitzen zuen Godotek, eta horren kontra **errebelatzea** zen beren egitekoa. Iñaki Iñurrieta

Jakina, mutilak bete ditu hamazazpi urte, eta normala da **errebelatzea**. Bernardo Atxaga

Irudimena **errebelatzen** bazitzaion ere, atzenean lo hartu zuen, eta ondo atsedendu zen. Koro Navarro

2 argazki pelikula edo xafla bateko irudia agerrarazi gai kimikoen bidez.

Eraikinean bertan, jantokiaz gain, zinea, tailerra, bileratarako gela, argazkiak **errebelatzeko** beste gela bat eta biltegia ere badira. Berria - Euskal Herria

Ni salan zutik, azken filmak ordenatzen ari, **errebelatzera** eraman ahal izateko. Joxe Austin Arrieta

-Karrete hau **errebelatu** nahiko nuke. Joxemari Urteaga

Mutikoa sotoan omen zegoen, beti bezala, argazkiak **errebelatzen**. Juan Garzia

Txuribeltzezko argazkiak **errebelatzean** are nabariago ikusten da hau. Harkaitz Cano

Irungo merkataritza-gunean sartuko zen argazki-bobina **errebelatzera**. Migel Angel Mintegi

Neuk aterako dut etxean, automatikoa jarrita, eta gero karretea Londresera bidaliko dut, han bizi den lagun batengana, han **errebelatu** dezan. Pako Aristi

Argazkia zantzua, aztarrena bada, zantzu hori berori ere moldagarria da, eta hainbat unetan esku har daiteke modu "kodetu" jakin batean: koadratzean, fokua, diafragma, **errebelatzeko** eta argitaratzeko modua aukeratzerakoan, eta abar. Josu Zabaleta

Paper gainean ez dago ezer, eta **errebelatzeko** likidoan sartu eta gero, pixkanaka, mantxak agertzen hasten dira, eta mantxa horiek irudi bihurtuz doaz, bihurtzen dira.

Iñaki Iñurrieta

Urrutitik nahiz gertutik -eta txuribeltzezko argazkiak **errebelatzean** are nabariago ikusten da hau- zubiko egitura osatzen duten burdina gurutzatuetatik eratortzen diren Xak nagusitzen dira. Harkaitz Cano

Argazkia bertan **errebelatzen** duten argazki-makinei esker. Josu Zabaleta

Errebelatzeko laborategian irudikatu nuen une batez, bonbilla gorriaren azpian eta bata txuria jantzita, zigarro beltza ezpainetan, eta negatiboak ilearendako haizagailu batekin lehortzen. Alberto Barandiaren

Gero, ohartu nintzen **errebelatuaren** tenperatura aldatuta emaitzak ere ezberdinak zirela, eta hasi nintzen produktuak gehitzen. Berria - Kultura

· Bazinentzat, artearen bokazio mimetikoaren betegintzarrea, irudikapen orok bere barruan inplizituki daraman "errealitatea baltsamatzeko" desiraren adierazpen nagusietako bat da argazkiaren **"errebelatzea"**. Josu Zabaleta

3 erlijiozko eta bestelako egia ezkutuez mintzatuz, ezagutarazi.

Gizabanakoa, betegin denean eta "Torah-ren misterioak **errebelatu** zaizkionean", [...] egiazko iritzi horien zehaztasuna ezagutzeko mailaraino helduko da. Xabier Kintana

Jainkoak berak **errebelatu** bezala idatzarazi zuela. Askoren artean

Aita dohatsua, bere semeak maitasun neurrigabez besarkatuz, bere bizi-proiektua azaltzen hasi zitzaien eta Jaunak **errebelatu** ziona adierazten. Askoren artean

Utz itzazue une batez bazterrean **errebelatutako** egiak. Iñaki Iñurrieta

Moisesi Sinai Mendian **errebelatutako** lege judua. Koro Navarro

Dena korapilatuko da beronek Joseba Gotzoni **errebelatzen** dionean Valeri ez dela gizon arrunta, baizik eta egunez ilunpetan ezkutaturik bizi den banpiro arriskutsua. Jon Arretxe

Batzuek errealitatea fotografiatzen dute, emakume honek errealitatea **errebelatu** egiten zuen. Berria - Kultura

4 (era burutua izenondo gisa)

Guri hurbilago oraino, 1936an, Sanjurjo, Mola, Queipo de Llano, Franco eta beste bizpalau jeneral **errebelatuk** Espainiako gerla piztu zutelarik, Nazioen Batasun Demokratikoak ez ikusiarena egin zuen. mendira jo zuen ezkutatzera, eta karabineroak bere bila zituen, gaizkile **errebelatutzat** jo baitzuten. Piarres Xarriton

Lüküzeren sostengua zuen, bertze baxenafartar eta zuberotarrena ere bai, baita **errebelatu** biarnesena ere. Aingeru Epaltza

Bera heieri osoki emana, artean apeztua desertuko trapizten bizi pobrea bizi izan du bakartasun hutsean eta otoitzean, egun batez **errebelatu** xoro batek hil zuen arte. Herria

Izan ere, arrazoimenak egia **errebelatuen** kontra darabilen borrokaren historia da, nolabait, zientzien historia. Juan Garzia

Batxilergoan Faxismoaren Dotrinaren egia **errebelatuez** lepo-lepo eginez geroztik, egia **errebelatu**, demostratu gabe guztiak gogaikarri edo susmagarri zitzaizkidan. Juan Garzia

Ez baita gure asmoa egia **errebelatuen** eta beren profeten artean bataren ala bestearen alde azaltzea, dagoenaren berri ematea baizik. Josu Zabaleta

Misterio **errebelatuan** josiak zeuzkan begiak. Juan Garzia

Gaurkoan bakarrik bi errollo amaitu eta dagoeneko argazki **errebelatuekin** agertu dira. Patxi Zubizarreta

5 galdu, desbideratu.

Baina, bat-batean, gaua ilundu da eta **errebelatu** naiz. Michel Oronoz

25. artikuluan aipatzen diren anitz heretiko asko gisatara **errebelatu** direla, gauza makurrak sinetsiz bekatuari buruz, eta badirela oraino zenbait Katoliko ere makur dabiltzanak. Piarres Xarriton

Badirelako hainitz jende beren bidetik **errebelatuak**. Xipri Arbelbide

Noizbehinka kabala **errebelatu** bat gurutzatzen nuen, gautxori baten auhena hautematen eta bat-batean herri argiztatuaren muinera heltzen nintzen. Itxaro Borda

Familia guztietan hazten den ardi **errebelatuaren** karikatura. Aingeru Epaltza

Jainkoaren grazia inoiz baino lanpetuago ibili zen gure erresuman, ardi **errebelatuak** Satanen atzapar papistei kentzen. Aingeru Epaltza

Bozkaria zaitezte, **errebelatua** zen ardia kausitu dudalako. Itxaro Borda

Artaldeko ardi maltso ala bihurri edo **errebelatu** guztien artzaina zela. Herria

Afrika-Saharako desertuetan, badira lehen ere turistak galdu eta egundaino berririk helarazi gabekoak: 17 europear kondatzen dituzte hola **errebelatuak** joan den otsailaz geroz. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ardi errebelatuaren (3); **argazkiak errebelatzean** (3); **aurka errebelatu** (6); **errebelatu egin** (7); **errebelatu egiten** (5); **errebelatu egiten da** (3); **errebelatu eta** (7); **errebelatu ziren** (3); **eta errebelatu** (3); **jaunaren kontra errebelatu** (3); **kontra errebelatu** (9)

---

errebelatzaile *iz* errebelatzen duen gailua edo gaia.

-Hau **errebelatzailea** da, Diagon kalexkan erosi nuen -esan zien. Iñaki Mendiguren

---

errebelatze *iz* argazki pelikula edo xafla bateko irudia agerraraztea gai kimikoen bidez.

Irudikapen orok bere barruan inplizituki daraman "errealitatea baltsamatzeko" desiraren adierazpen nagusietako bat da argazkiaren **"errebelatzea"**. Josu Zabaleta

---

errebelazino ik **errebelazio**.

---

errebelazio *(orobat **errebelazino** g.er. eta **errebelazione** g.er.)* **1** *iz* errebelatzea.

Errebelazioa, lege naturala, eta gizarteak adostutako hitzarmenak. Juan Martin Elexpuru

San Frantzisko hil ondoren, aintzazko zauri sakratuak direla eta, anaia santu eta beste pertsona jaieratsu batzuei egindako zenbait agerpen eta **errebelaziori** buruz izango da. Askoren artean

Edozein lekutara zihoala ere, Jauna benetan zegoen Frantzisko santuarekin, bere **errebelazioekin** poztuz eta bere mesedeekin adore emanez. Askoren artean

Santua berehala konturatu zen **errebelazioz** etsaiaren maltzurkeriaz, nola nahi zuen bera lasaikeriara eraman, alegia. Askoren artean

Ezinezkoa gertatu zen arrazoiarentzat eta **errebelazioarentzat** elkarrekin bizitzea eta bizitzen uztea. Iñaki Mendiguren

Hamar urte lehenago bera han bertan eserita egon zenean, adar edo hosto irudi txiki bat zegoen mantelean, eta hari begira egon zen **errebelaziozko** momentu batean. Anton Garikano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jainkoak bere onginahian pozbide eta **errebelazio** harrigarriak ematen zizkion, Kristoren festaburuetan batez ere. Askoren artean

Leialtasunaren erreklamazioa beren profetek hartu omen zituzten **errebelazio** pertsonaletan oinarritzen zutela. Iñaki Mendiguren

Aurrerantzean bi aginpide burujabe zeuden, **errebelazio** profetikoa eta arrazoi filosofikoa, eta bakoitzak erabateko eskumena eskatzen zuen adimenaren ekintza-eremu osoaren gain. Iñaki Mendiguren

Errebelazio handia agian ez zen egundo etorriko. Anton Garikano

Errebelazio sekretu batean bezala. Oskar Arana

Sinetsi behar da eta ziur baietsi ez zirela fantasiaren fruitu izan, zeruko egiazko **errebelazio** baizik. Askoren artean

Berehalako **errebelazioa** eta berehalako erantzuna. Oskar Arana

Garai hartan, anaiak Jainkoaren aurrean xalotasunez eta gizakien aurrean konfiantzaz bizi zirenean, jainkozko **errebelazio** baten poza merezi izan zuten. Askoren artean

Aita txit santuak Erregelari buruzko ikuskari batean zeruko **errebelazioa** izan zuen. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Bada, **errebelazio**-ukaldirik gabe ez dagoela ezer. Oskar Arana

·Honela, kristau-**errebelazioak** munduko historia osoaren ikuspegi bat ematen zigun, iraganeko sorreratik etorkizuneko bukaeraraino, Jainkoaren ikuspen denboragabe eta betikoan ikusita bezala. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errebelazio bat (10); **errebelazio bat izan** (6); **errebelazio baten** (6); **errebelazio handia** (3); **errebelazio hau** (3); **errebelazio saria** (3); **errebelazioa izan** (3); **errebelazioz ikasi** (3); **eta errebelazio** (4); **jainkoaren errebelazioz** (6); **max errebelazio** (3)

---

errebelazione ik **errebelazio**.

---

errebelde 1 *izond/iz* matxinatu dena.

Bederatzi militar errusiar hil dira Txetxeniar **errebeldeek** egindako eraso baten ondorioz. Berria - Mundua

Amortarrek israeldar **errebeldeak** garaitu. Elizen arteko biblia

Ez zara herri **errebelde** horren aurrean beldurtuko, ez kikilduko. Elizen arteko biblia

Baina orduan ongi ikusia zegoen denen eta denaren kontrako **errebelde** hura aipatzea. Josu Zabaleta

Egun osoan luzatuak nituen eskuak, herri sinesgogor eta **errebeldeagana**. Elizen arteko biblia

Gurasoak, **errebelde** zenean eta bere onean zegoenean berarekin hain etsaituak, orain, babesgabe eta gaixo zegoen garaian, egunero etortzen zitzaizkion bisitan, izugarri arduraturik semeaz. Xabier Olarra

Erromatarrak, jende-modu **errebelde** eta ankerra, beren aldamenekoen aurka oldartu ziren ohi zuten bezala, eta beren ausarkerian eskua ezarri zieten gauza santuei. Askoren artean

Gaurko gazteak horrelakoxeak gara, **errebeldeak** eta egoskorrak. Bernardo Atxaga

Errebelde eta desleial izan gara Jaunarekin, bizkarra eman diogu geure Jainkoari. Elizen arteko biblia

Inguruko herriak baino ere **errebeldeago** izan zarete, ez duzue nire legeen arabera jokatu. Elizen arteko biblia

Hare Krishnan sartu aurreko garaian hain "zaila", hain tormentatua, hain **errebeldea** izan bazen ere, orain haserre, tormentu eta larritasun hura guztia joana zuela zirudien; bakean zegoela, alegia. Xabier Olarra

Mutiriak lotsagabezia adierazten du; **errebeldea**, aldiz, sistema baten kontrako jarrera aktiboa duena da, haren aurrean errebelatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Thabo Mbeki afrikar batasuneko buruaren inguruan bilduak dira, Konan Bedie ministro ohi eta orai **errebelde** batzuen buru dena eta Laurent Gbagbo presidenta eta beste batzu. Herria

Ez zaitzatela inork argudio hutsalez lilura, horrexegatik pizten baita Jainkoaren haserrea **errebeldeen** aurka. Elizen arteko biblia

Francoren aldekoek **"errebelde"** iritzi zieten legezaleei. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Baina ez **errebelde** itsu eta fanatikoa, baizik eta lasaia, umoretsua, argia. Bernardo Atxaga

Hor ikusten zintuztedan zuek biok, **errebelde** errukarriok, nire emaztea eta nire adiskidea, nire aurka altxatutako bi pertsona. Xabier Olarra

Ardiak bezala tirano batengandik besteagana pasatzen ohitutako gizakiak aldatu eta jarraitzaile sutsu eta **errebelde** setati bihurtu zituen. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errebelde bat (3); **errebelde eta** (5); **errebelde izan** (5); **eta errebelde** (7); **gazte eta errebelde** (3); **herri errebelde** (7); **jende errebelde** (3)
errebeldea izan (3); **errebeldeak dira** (4); **herri errebeldea** (8)

---

errebeldia 1 *iz* errebeldeari dagokion ekintza.

Errebeldia bere hutsean ez da aski gizarteak ezartzen dituen ustekabekoak gainditzeko, ezta garaiko apatia erabat arrunta hausteko ere; **errebeldia** hori ez baita ekintza bilakatzen, jarrera hiperkritiko baizik. Josu Zabaleta

Izan ere, asko baitira haien **errebeldiak**, izugarri larriak haien desleialkeriak. Elizen arteko biblia

Errebeldiak heriotza ekartzen die zentzugabeei, axolagabekeriak galtzen ditu burugabeak. Elizen arteko biblia

Nik, ordea, neure kabuz suntsitu nituen zure **errebeldiak**, ez nituen kontuan hartu zure erruak. Elizen arteko biblia

Ondo ezaguna dut zuen **errebeldien** neurrigabea eta zuen bekatuen astuna. Elizen arteko biblia

Beharrezkoa da denboraldi hori, **errebeldiari** amaiera emateko. Elizen arteko biblia

Errebeldiaz oldartu edo ez, berdintsu da, Baroja bera eta bere pertsonaiak aurretiaz daude porrot egitera kondenatuak, ingurunearen erruz eta aukera gutxi dituztelako beren talentua garatzeko. Josu Zabaleta

1772ko irailaren 2an, 32 urte zituela, **errebeldian** epaituko dute "pozoitze ahaleginagatik" eta "sodomia krimenagatik". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ahal bezala zuritu ditut fede galdua, errealitatearen ikuspegi laikoa, itxaropen etsia, **errebeldia** egoskorra, eta izerdi-iturriaren aldaketa, goldetik lumara. Xabier Mendiguren Elizegi

Esnobismoagatik murgildu zen beharbada hiriaren zabortegietan, gaztetako **errebeldia** merkeak bultzatuta nahastu nahi izan zuen giza hondakinekin. Joxean Agirre

Akademian, noski, ez zuten inolako **errebeldiarik** barkatzen, ezta **errebeldia** musikala ere. Xabier Olarra

Ez da zer harriturik Andres Hurtadoren nihilismoarekin ezta haren pozbiderik ezarekin eta alferrikako **errebeldiarekin** ere. Josu Zabaleta

Auzo honetan estatuak delinkuentziaren aldeko politika bat egin du, hemengo **errebeldia** akabatzeko. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan)

Abisu gisa edo, 1900ean aldatu zen Espainiako kode penala: aurrerantzean, Espainian separatismoaren alde egiten zuenari estatuaren kontrako **errebeldia** ekintza bultzatzaile izatea leporatuko zioten. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errebeldia eta (8); **eta errebeldia** (4)

---

errebeldiatxo *iz adkor* errebeldia txikia.

Gizarteko dogmen kontrako **errebeldiatxo** bat sumatzen zaio hor, matxinadarako deirik gabe, jatortasun galdu baten mina sentituko balu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

---

errebelio 1 *iz* errebelatzea, matxinatzea.

Itxura guztiak egin zituzten Angolara joango bagina bezala, hango **errebelioan** parte hartzera, baina nik uste dut bahitzaileek ondo pentsatua zutela aldez aurretik Brasila joatea. Berria - Kultura

1569 hartan, Arberoara ere hedatu zen **errebelioaren** sua. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuetan)

Nekea eta garagardoa, eta paradisuko sarjentuak egiten zizkidan ukitu eta zirriak, eta gainera nire bihotzaren **errebelio**-oihua: den-dena itotzen nuen alemanen erako atxur ikaragarri hartan. Fernando Rey

---

errebenta *iz* ikuskizun baterako erositako sarrerak garestiago saltzea.

Batez bestekoa ikaragarri hazten da **errebenta** aintzat hartzen badugu. Berria - Kirola

Hasi dira pikeak herrialde bereko jokalarien artean, laister kale borroka internazionala Porton, Lisboan edo guttien uste den hirian, **errebentak** forratzen estadioetako atarietan. Berria - Kirola

Lisboan egon ginen **errebentaren** gorabeherekin jakin-mina pizturik, baina uniformedunak eta sekreta kantosoak baizik ez zeuden estadio inguruan, larunbatez. Berria - Kirola

---

errebentatu, errebenta(tu), errebentatzen da *ad* lehertu, leher gaizto egin.

Denborarekin norberaren muturrean **errebentatzen** diren arrautza ustelak baizik ez dira izaten gezurrak. Hasier Etxeberria

Zorabiaturik, hesteak **errebentatzen**, baina, besa-indarraren eragin hutsez, buelta eman dio harriari gerriraino. Pako Aristi

---

erreberberazio *iz* beroa, hotsa edo argia islatzea.

Dayna Kurtzek Elvis Presleyren ahotsari jartzen zitzaion **erreberberazio** bera erabiliz kantatzen du hemen, abestia geroz eta biziagoa den neurrian. Berria - Kultura

---

erreberendo *izond/iz* agurgarria.

Jenkyn jauna, Jenkyn andrea, Danen izeba, eta Bevan **erreberendoa** eta Bevan andrea zeuden mahaian eserita. Koro Navarro

Ikusi al duk **Erreberendoaren** aurpegia? Koro Navarro

---

erreberentzia 1 *iz* buru-makurtzea; gurpena.

Halako egoera batean aterkiari agudo heldu eta damari emango dio, **erreberentzia** batekin eta hitz ezti batzuekin. Anton Garikano

Nahiago zuten Kristoren maitasunagatik laidoak eta irainak jasan, munduaren ohoreak edo **erreberentziak** edo laudorio hutsalak jaso baino. Askoren artean

Debozio [...]: Izaki Gorenarenganako **erreberentzia**, Hark gizakiarekin omen duen antzean oinarritua. Xabier Olarra

"Barka beza markesa andreak", esan zion Adrianek **erreberentzia** batekin. Bernardo Atxaga

Baina zertaz kexatuko naiz ni orain, baldin hainbertze **erreberentziaren** ondoren konkorturik akabatu ez banuen behintzat...? Joan Mari Irigoien

Eguzki-loreek **erreberentziaz** estali zuten gaua. Jasone Osoro

2 ***erreberentzia egin***

Atsoak Oiarbideren oinera jaitsi du bildua eta **erreberentzia egin** dio. Koldo Izagirre

Buruarekin **erreberentzia egin** zidan, baiezkoa zela esanez, eta kapelua buruan paraturik alde egin zuen. Edorta Jimenez

Aldareari **erreberentzia egin**, pulpitura igo eta predikatzen hasi zen. **Erreberentzia eginaz** etorri zitzaion zerbitzaria. "Hinduen babesle nagusia da" esan zidan, **erreberentzia eginez** irudiari, "bere aldamenean ezin seguruago gaude, gaitz guztietatik salbo". Askoren artean

Erreberentzia egin iezadazu lehenik! Xabier Paya

Peterrek ere bazekien gizalegez portatzen, manera onak ikasi baitzituen maitagarrien zeremonietan: lurretik altxatu eta **erreberentzia** dotorea **egin** zion. Julen Gabiria

Erreberentzia egin iezadazu lehenik! Xabier Paya

Wendyk, liluratuta, **erreberentzia** bera **egin** zion ohetik. Julen Gabiria

Bertan geratu, eta solaskide ikusezin bati **erreberentzia** txiki bat **eginez** eman zuen aditzera, erabat desinteresatua zegoela kontu haren eboluzioagatik. Anton Garikano

Erreberentzia doi bat **egin** zion, belaunak pitin bat makurturik. Anjel Lertxundi

Velascok burua erdi makurtu zuen berriro, **erreberentzia** gisako bat **eginez**. Anjel Lertxundi

---

erreberentziatxo *iz adkor* erreberentzia txikia.

Gauza bera egin du jende guztiak, bai Leandrok agurtu gaituenean, baita emakume pinpirinak zirkin herabe batez **erreberentziatxoa** egin duenean ere. Anjel Lertxundi

---

errebero *iz* esne jetzi berria.

Baina, Zarauzko beraneante aberatsek ondo ordaintzen zitean behiaren **erreberoa** edateagatik, eta Ama Mariari laguntzen hasi zuan diruaren hotsak poztuta. Xabier Etxabe

Amanciok orduan berak idiarena joko zuela eta kopoirik dibinoena beteko zuela **erreberoz**, ostia likidoak apaizen hortzak zurituko zituela eta. Ez da hau olerki larri, dramatiko horietakoa, lehen aipatu dugun beste sailekoa baino: egunerokotasuneko elementuekin ironia soil, sotil bat daukatenetakoa (**"erreberoa"** ere ez da hitz potolo abstraktua, esne jetzi berria baizik). Inazio Mujika Iraola

---

erreberrikuntza *iz* erreberritzea.

Hamar urte egiten duelarik zuzen zuzena aurten Iparraldeko adarra sortu dela, ordezkarien artean **erreberrikuntza** gertatu da: Jean Fagoaga medikuak lekukoa pasatu dio Jean Claude Larronde historialariari, hemengo adarraren president karguan. Herria

erreberripen *iz* erreberritzea.

Hegazti migratzaileen **erreberripena** lanjerean ezarria dela ihizi denbora emendatuz, eta gainera Europako legediaren kontra doala dekretu berria. Herria

erreberritu, erreberri(tu), erreberritzen du *ad* berritu, berriz egin; eraberritu.

Aurtengo kanpaina hau ondoko urteetan ere **erreberrituko** da molde berean. Herria

Hori ez zen haren izaeran, eta ez zuen uste esperientzia **erreberrituko** zuenik. Elena Touyarou

Urte guzietako usaia **erreberrituz**, joan den larunbat eguerditan bildu dira Denen Etxeko gelan, auzo gehienak. Herria

Lehen graduan Akizeko auzitegiak indar gabetu zuen kurdiar horren ezkontza; Ondorioz administrazioak ez zion paperik **erreberritu** eta prefetak igorri nahi izan zuen hegazkin batean Miarritzetik Turkiara. Herria

Gero, José-k etxea **erreberritu** zuelarik, kendu zion pitrail puska hori. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Angeluko ikastolaren inguruko "Kimua" elkarteko bulegoa **erreberritu** da kasik osoki urri hastapen honetan. aurtengo irabazia baliatua izanen da jadanik hasiak diren lanen pagatzeko eta San Josep etxearen teilatua **erreberritzeko**. Herria

Donibane-Garazin berean badira Nafarroaren denborako anitz herresto, elizatik haste, gure eta hango Santxo Azkarra erregeak eraikia edo bederen **erreberritua**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Iragan dut Moratinos herrixka, hemen ere ura **erreberriturik**. Piarres Aintziart

Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2003ko hitzarmena **erreberritzeko** prozedura finkatu dute. Berria - Euskal Herria

Lau herrietako 15 komuniantek bataioko agintzak **erreberrituko** dituzte igandean, Aiherrako elizan. Herria

Hazparneko misionesten kaperan, Bataioko agintzen **erreberritzeko** elizkizuna egin ondoan, zaldi karrosan joan ziren biak Ziburura. Xipri Arbelbide

Biltzar nagusiak **erreberritu** zuzendaritzak hautatu ditu hamar ordezkari bulego berrirako. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agintzak erreberritu (5); **agintzak erreberritu dituzte** (5); **agintzak erreberrituko** (3); **agintzak erreberrituko dituzte** (3); **agintzen erreberritzea** (13); **bataioko agintzak erreberritu** (5); **bataioko agintzak erreberrituko** (3); **bataioko agintzen erreberritzea** (13); **bulegoa erreberritu** (3); **erreberritu da** (4); **erreberritu dituzte** (6); **erreberritu du** (4); **erreberritu eta** (3); **erreberrituko dituzte** (4)

erreberritze *iz* berritzea, berriz egitea; eraberritzea.

Horrela gune anitzek **erreberritze** frango galdegiten dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bikote batzuk moldatuak ziren ikasturtean eta ez zen ikasle talde berririk eraturik izan bigarren urtean, batzuk ezker sindikalismora egin baitzuten, Elizatik urrunduz, eta ez baitzen **erreberritze** azkarrik izan omoniergoan. Piarres Aintziart

Aipatuko dituzten gaiak: bulegoaren **erreberritze**, kondu, bestak eta beste. Herria

Etxe horien **erreberritzeari** lehentasuna emateko eskatu zuen Jean-Marc Abbadiek. Berria - Euskal Herria

Ezpeletako Baruen jauregiaren estrenaldia joan den urtean egin zuten kasik bi urte **erreberritzeren** ondotik. Herria

Hiru, lau eta bost metrako tindu lanak salgai ezarriko ditu Amorotzeko Ospitalean duen lantokiaren **erreberritze** lanak ordaintzeko. Herria

Bizpahiru hilabete iraun behar omen dute kanpoko obra horiek; teilatu arranjatze, zur tratatze, ezkilaren dorre **erreberritze**. Herria

errebes 1 *izond* okerra; bihurria, menderagaitza.

Errima **errebes** hauei luze eustea eraginkorra suertatzen da etekin jolasgarrien aldetik. Iñaki Arranz

Berak, adi jarririk ere ez zien gauza asko konprenitzen: soinuak nahasiz, hitz **errebesak** erabiliz aritzen ziren... Pablo Sastre

Bere moduan maite ninduen, bere modu **errebesean**. Joxan Elosegi

Guztizko adostasuna dago beraien kontra: noski zalapartariak dira, urrin gaiztokoak, noski usadio gaitzesgarri eta **errebesak** dituzte. Pablo Sastre

Zorabiatu arte ibili zara bueltaka, baina ez zaizu ataka **errebes** horretatik ateratzeko ezer bururatu. Rafa Egiguren

2 (adizlagun gisa) kontrako aldera.

Aldaik **errebes** begiratu zion. Pablo Sastre

Rosamariren irrira zabaldu ditu begiak, eta eskua luzatuta barnerantz bihurritu du, **errebes**, neskaren masaila binperraz laztantzeko. Koldo Izagirre

3 ***errebesarekin*** errebesez.

Piloteoa luze doa, halako batean, Sorozabal miarriztarrak **errebesarekin** jo eta, jaun-andreok, pilotak non joko eta ezker paretaren goikaldeko txapan jotzen du. Berria - Kirola

4 ***errebesez*** kontrako aldetik eskua mugituz.

Iturzaeta ezker hutsa zen, **errebesez** eskuin asko ezkerrez baino hobeto moldatzen bazen ere. Berria - Kirola

Errebesez pilota kanpora, eskuinez pilota kanpora, eta sakerik ezin arrastoen tartean jarri. Berria - Kirola

Eskuinez txikitu zuen pilota, eta **errebesez** zabaldu zuen zelaia. Berria - Kirola

errebeskada *iz* eskuaren azpialdeaz emandako kolpea.

Julioren esku batek ileetatik heldu zidan, burua zakar jasoarazi, eta bestearekin masailekoa eman zidan, eta bueltakoan **errebeskada** beste masailean. Juan Kruz Igerabide

Julioren esku batek ileetatik heldu zidan, burua zakar jasoarazi, eta bestearekin masailekoa eman zidan, eta bueltakoan **errebeskada** beste masailean. Juan Kruz Igerabide

errebeskeria *iz* egite okerra; aldrebeskeria.

Bai, erdaraz noiznahi mintzatzeko **errebeskeriak** errekarat garamatza eta makur horrek diraueno, gure euskara egunetik egunera galtzera dabilke. Xipri Arbelbide

errebeski *adlag* moldakaizki.

Lan guziak **errebeski** egiten ditu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

errebesta *iz* bigarren besta.

Asteburu honetan iragan beharrak dira Eiheralarreko **errebestak** eta egoera horrekin baliteke ezeztatzea. Berria - Euskal Herria

errebestakari *iz ipar* errebesta dela eta.

Finalak finkatuak dira urriaren 22ko, ibiakoitzarekin herriko **errebestakari**. Herria

errebibalista *iz* sermoilaria.

Benefiziodunak, kapitularrak, xekeak, monje budistak, eskaleak, eskribak, guruak, koru-arduradunak, sinagogazainak, fakirrak, elizainak, beneragarriak, **errebibalistak**, zenobitak, bizi arteko bikarioak, kaperauak. Xabier Olarra

errebide ik **errepide**.

errebindikapen *iz* errebindikatzea.

Bigarrenak, berriz, hain estu loturik daudenez beren aurrekoei, aparteko izatea omen duten **errebindikapena** ere eztabaida liteke. Iñaki Mendiguren

Zorrotza adarra joten, bizia **errebindikapenean**, eta, inor mindu barik, entzulegoa gozamen alaienera eroaten zekiana. Berria - Kultura

Elkarteen izaera berezia, errebindikatzaile edo borrokatzailea izango da; **errebindikapen** eta salaketa hori ekintza praktikoetan azalduko da; elkarte hauek autonomoak izango dira edozein partidu politikorekiko. Berria - Euskal Herria

errebindikatibo *(orobat **erreibindikatibo**) izond* errebindikatzen duena.

Ez gara plataforma **errebindikatibo** bat soilik; arloaren barne harremanak sendotzeko eta hor aurrera egiteko bildu gara. Berria - Kultura

El milagro de Candeal ez da pelikula **errebindikatibo** bat, ez da salaketa egiteko pelikula bat. Berria - Kultura

Orduan arazo guzti haiei erantzun **erreibindikatibo** bat eman zitzaien, nahiz eta gauza praktiko batzuk ere egin "Udalbiltzaren sorrera". Berria - Euskal Herria

Sanzek esan zuen Nafarroako Gobernuak ez duela politika **«erreibindikatiboa»** eginen eta, eskumenak «herritarrei eman beharreko zerbitzuak hobetzeko» balio dutenean direla eskatu beharrekoak adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

errebindikatu *(ETCn **695** agerraldi; orobat **erreibindikatu** ETCn **291** agerraldi eta **errebeindikatu** g.er.)*, erribindika(tu), erribindikatzen du *ad* eraso edo kidekoez mintzatuz, erantzukizuna bere gain hartu.

Egia esan, garaiotan meritu pixka bat badauka, norbaitek horrela metafisika **errebindikatzeak**, eta errigoroski arazo kulturalen eta politikoen ulerpiderako beharrezko legez **errebindikatu**, ez kosmologiarako edo. Joxe Azurmendi

Anartean, Arabiar Penintsulako Al Kaeda erakundeak izenpetuta zegoen eta Internet gune batean zabaldu zen agiri baten bitartez **errebeindikatua** izan zen erasoa. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errebindikatu du (3); **errebindikatu nahi** (3)

errebindikatzaile *(orobat **erreibindikatzaile**) izond* errebindikatzen duena.

Ekintza sindikal **errebindikatzailea** da prekarietateari aurre egiteko giltzarria. Berria - Ekonomia

Elkarteen izaera berezia, **errebindikatzaile** edo borrokatzailea izango da; errebindikapen eta salaketa hori ekintza praktikoetan azalduko da. Berria - Euskal Herria

Aski bekigu, beraz, jakitea lege honen indar **errebindikatzailea** ez dela hedatzen zigortuari bere ondasunak edo hauen zati bat kendu ahal izatetik haratago. Imanol Unzurrunzaga

Egoki da, berbarako, merkataritzako negozioetatik akzio **errebindikatzaileak** aldentzea, merkataritzako gorabeherek gauza higigarrien gainean jokatzen baitute. Andres Urrutia

errebindikazio *(orobat **erreibindikazio**) iz* errebindikatzea.

Aski bekigu, beraz, jakitea lege honen indar **errebindikatzailea** ez dela hedatzen zigortuari bere ondasunak edo hauen zati bat kendu ahal izatetik haratago. Imanol Unzurrunzaga

Egoki da, berbarako, merkataritzako negozioetatik akzio **errebindikatzaileak** aldentzea. Andres Urrutia

Elkarteen izaera berezia, **errebindikatzaile** edo borrokatzailea izango da; errebindikapen eta salaketa hori ekintza praktikoetan azalduko da. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
duen errebindikazioa (3); **errebindikazio bat** (5); **errebindikazio bat aldi** (3); **errebindikazioa da** (3); **eta errebindikazio** (3); **eta errebindikazio bat** (3)

errebira *iz* biratzea.

'Errebira istriborrera!' deiadar egingo du nostromoak. Joseba Sarrionandia

errebisatu, errebisa, errebisatzen du *ad* arretaz aztertu, berraztertu; berriz ikusi.

Egoera pertsonalaren arabera «idatzi, **errebisatu**, berrirakurri, ezabatu, suntsitu eta berridazten dut». Berria - Kultura

Romanek ez zekien zeintzuk ziren orrialdeak, baina bere entziklopedia osoa **errebisatu** zuen berak, goitik behera, eta ez zuen ezer ere aurkitu. Unai Elorriaga

Mahai gainean dituen paper ugarien bestaldean eserita, militarrak gure pasaporteak **errebisatu** ditu. Joseba Sarrionandia

'Armandok idatzi duen nobela dela uste dut,' diot, orri batzuk **errebisatu** ondoren. Joseba Sarrionandia

Handik aste batzuetara, ideia genial bila paper zaharrak **errebisatzen** ari garela, hantxe ikusten dugu berriro esalditxoa. Joxerra Garzia

Dialektika hitzak, aspaldian entzun gabeko hitz horrek, antzinako historia linterna batekin **errebisatuz**, gaztetan irakurritako hainbat liburu eta eskola sozialetan eztabaidaturiko hainbat asmo utopiko ekarri dizkit gogora. Joseba Sarrionandia

Galderak **errebisatuko** dituzu berriro, erantzun posibleak asmatzen, Zer dela eta ari naiz bidaia hau egiten? Joseba Sarrionandia

Han ikusi genituen, ea herrirako sarrera libre zegoen **errebisatzen**. Joseba Sarrionandia

Begiradaz sukaldea **errebisatzen** ari balitz bezala. Iñaki Zabaleta

---

errebisio 1 *iz* errebisatzea.

Maiz pentsatu dut Izagirreren *Nire euskaltasuna* poema eder hark urgentziazko **errebisio** bat behar duela ideiak eta terminoak gaurkotuta». Berria - Kultura

«Zergatik errebisatu?», esan zuen Izagirrek, Nire euskaltasuna, **errebisiorik** gabe, irakurri eta gero. Berria - Kultura

Egin dezagun beraz gure historiaren **errebisio** bat, jar dezagun bakoitza dagokion tokian. Iñigo Aranbarri

Gero, autoa hartu, eta, semeari gustatzen zaion burrundaran, klinikatik jaitsi ginen, bost urteko **errebisioa** egin gabe. Karlos Linazasoro

Errebisioak egin beharko ditugu hilero, endoskopioa, badakizu. Hasier Etxeberria

Atzo egon zen Aldaba doktorearekin lehenengo **errebisioa** egiten. Hasier Etxeberria

Bost minutu ere ez ziren pasako gasaren **errebisioa** egitera etorri zen mutila gainera oldartu zitzaidanean. Jasone Osoro

Lehenik eta behin, entziklopediaren **errebisioa** egin zuen Matiasek, inongo irizpiderik gabe, eskua non, hura irakurri. Unai Elorriaga

Ea ba sententziaren **errebisioa** eskatzea komeni zen ez zen komeni? Edorta Jimenez

Ze **errebisioa** eskaturiko batzuei zigorra leundu beharrean gogortu egin zieten. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere buruaz kezkatu ere egin zen behin, mozorrotzeko grina eta zaletasuna norbaiti aitortu zion aldi bakarrean, urteroko **errebisioa** egiten zien laneko psikologoak gaiaren inguruan egin zion galdeketa susmagarria zela eta. Harkaitz Cano

Gure mutil ilegorriarekin joan da **errebisio** medikoa eta ingresorako paperak betetzera. Joseba Sarrionandia

Gero Lausanara eraman zuten bost urtez Ingeniaritza Industriala ikastera, soldaduskarako **errebisioak** hango kontsulatu espainiarrean pasa behar zituen. Mikel Hernandez Abaitua

---

errebisionismo *iz* doktrinak, jokaerak eta kidekoak errebisatzeko joera.

Ez dut **errebisionismo** poetikorik egingo, eta are gutxiago kantu batean, eta are gutxiago orain hilik den kantari batek kantu bihurtu zuen letran. Berria - Kultura

Jakin gabe, Eguzki Berriaren lurraldeko gazte askok oraindik ere bideratzen duten **errebisionismo** softaren ildotik mugitzen zen Fubuki ere. Joxan Elosegi

---

errebisionista *izond/iz* errebisionismoarena, errebisionismoari dagokiona; errebisionismoaren aldekoa.

«Errespetu gabea, lotsagabea, arriskutsua, **errebisionista** eta dibertigarria» da *The Legendary Shack Shackers* taldeak egiten duen musika, egileen euren hitzetan. Berria - Kultura

Klase borrokaren zurrunbiloak gurea mila puskatan zartarazi ez bazuen, **errebisionisten** eta ortodoxoen arteko gatazka luze bati zor diot. Aingeru Epaltza

---

errebisore *iz* ikuskatze lana egiten duen pertsona, eskuarki trenetan. **ikuskatzaile 2**.

Errebisorearekin eta estazioko zaindariarekin ibili behar duk kontuz. Harkaitz Cano

Donostiatik atera eta berehala inspekzio bat egitera nindoala esan nien nire bi kideei, eta treneko poliziari deitzeko eskatu nion **errebisoreari**. Bernardo Atxaga

Eta beste arrazoi horiek izan daitezke: matematikako problemak eta **errebisore** inpertinenteak. Unai Elorriaga

---

errebista *(orobat **errebixta** g.er.)* 1 *iz* informazio grafikoa duen aldizkaria, eskuarki astero kaleratzen dena.

Holako guzien zerrenda osorik hemen ezin eman, hor ditugu **errebixta**, kaseta, liburu eta ixtudio batzorde askotako artikuluak. Herria

Testuaren lehen bertsioa gaztelaniaz argitaratu zen, *El País* egunkariaren **errebistan** (2000). Bernardo Atxaga

Mahai gainean pilaturik zeuden **errebistak** interesik gabe eta ziztu bizian begiratzen zituela iruditu zait. Txillardegi

Etxeko egongelako mahaitxoko **errebistei** begira geratzen da Mikel. Xabier Mendiguren Elizegi

Barruan, liburuez gain, **errebistak** zeuden han eta hemen sakabanatuta; baina, oro har, ordena zen nagusi. Bernardo Atxaga

Alkateak habano bat ekarri zion aitari, eta *Blanco y Negro* **errebista** ere bai, portadan jeneralisimoaren erretratua zekarrena zaldiekin, banderekin eta mairuekin. Joseba Sarrionandia

2 (izenondoekin)

"Nahi al duzue **errebista** lizun horietako bat ikusi?", esan nien etxe barrura sartzekoa eginez. Bernardo Atxaga

Inazitok ohe gainera jauzi eta eskua azpira eramanda, bere logelan balego bezala, ohepetik **errebista** lodi bat atera zuen. Joseba Sarrionandia

3 armadako buru batek formatuta dagoen tropa ikuskatzea.

Tropei **errebista** pasa zieten bi buruzagiek. Txillardegi

Tropei **errebista** pasa zieten bi buruzagiek. Txillardegi

Biharamunean, San Juan Plaza zabalean, zortzi bat mila soldadu bolondresi [...] **errebista** ikusgarri hunkigarria pasa ziela Don Carlosek jakinerazi digute telegrafo bidezko parte etengabeek. Txillardegi

Atarira inguratzean, **errebista** kioskoko agureari ez ziola kasurik egingo erabaki zuen Rekexok. Joxemari Iturralde

Aldi batez Copenhagueko Scalan lan egin zuen, barietate **errebista** batean. Pablo Sastre

Inguruan lerrokaturik, **errebixtan** pasatu gintuen, begietara behatzen zigula, bakoitzari, goresmenak emanez egin genuenarengatik. Marzel Etxehandi

---

errebixta ik **errebista**.

---

errebobinatu, errebobina(tu), errebobinatzen du *ad adkor* pasatako kontuak oroitu. ik **birbobinatu**.

Gaurkoan ere hizpidearekiko axolagabe, **errebobinatzen** hasi, eta gogoa Dabidengana hegaldatu zait. Patxi Zubizarreta

Eta nik ez dut memoria handiegia izan nahi, ez dut gatzezko estatua bihurtu nahi, ez dut etengabe **errebobinatzen** ibili nahi. Patxi Zubizarreta

Baina, azken finean, hori pentsatze hutsa aski zait dagoeneko gogoa etorkizunean ere badudalako, eta horixe, eta etengabe **errebobinatzen** ez ibiltzea, delako Teresak behin eta berriro aholkatzen zidana. Patxi Zubizarreta

Baina hik ez hartu serioegi, ez hasi berriro ere **errebobinatzen** eta goza ezan momentua. Patxi Zubizarreta

Orain ongi pasa, izan hadi behingoz ero samarra; ez dun hemen bizitzen eta etengabe **errebobinatzen** jarraitu behar, hor baizik. Patxi Zubizarreta

---

erreboilo[1] *iz* itsas arrain hezurduna, zapala eta ia biribila, kolorez arrea, sukaldaritzan oso aintzat hartua*(Psetta maxima).* ik **turbot**.

Esku zabalduan ipini zion **erreboiloa**, paper lodi horizko orri batean bildurik. Karlos Zabala

Arrain ederren bat, **erreboilo** bat, izokin bat, hartzen zion haren ondoko saltzaileren bati, eta, ordaintzeko, dirua marmolaren gainean paratzen zuen. Karlos Zabala

Urdai saltzaileak, bere salmahaitik mugitu gabe, arrain saltzailea begiztatzen zuen aurreko pabiloian, haren izokin eta **erreboiloen** artean. Karlos Zabala

Han ziren birsaltzaile handiak, bake-bakean, arrain alerik onenen zain, zamaketarien lepoa atunez, **erreboiloz**, izokinez kargatzen zutela. Karlos Zabala

Normandiar ederrak hatz batez **erreboiloari** tripak atera eta zabor ontzira bota zituen. Karlos Zabala

Baziren **erreboilo** ederrak, esne gaina bezain zuriak; itsas aingirak, xerrak markatzeko balio duen orratz beltzarekin ziztatuak; lengoradu pare bat, barbarinak, lupinak, denak fresko-freskoak. Karlos Zabala

Arreta bestera joan zitzaion, enkantegile batek **erreboilo** eder bat erematean atera eta deiadar egin zuenean. Karlos Zabala

Turbot handia, **erreboilo** handia, biak pikortsuak eta esne gatzatua bezain zuriak. Karlos Zabala

---

erreboilo[2] *iz* zenbait organotan agertzen den konkor edo irtengunea. ik **erraboil 2**.

Usaina detektatzen dutenean, nerbio-seinalea garunera, usaimen-**erreboiloko** eremu jakin batera, bidaltzen dute, nerbio bulkada baten bidez. Berria - Gaiak

Usaimen **erreboiloa** usaimenarekin lotutako gune nagusia da. Berria - Gaiak

---

errebokatu, erreboka(tu), errebokatzen du *ad* kareberritu.

Barrenean, non ikusten dugun etxe eder bat, ondo **errebokatua** dena, eta esaten diot neskari: Josu Zabaleta

---

erreboke *iz* errebokatzea.

Garai batean karabineroen egoitza izandako etxean -**errebokerik** gabetua eta metrailadore balaz zulatua erabat-, guardia eslabo bat aurkitu zuten. Josu Zabaleta

---

errebolber **1** *iz* su arma laburra, kalibre txikikoa, balak kokatzeko tanbor birakaria duena eta esku batez erabiltzen dena.

Jarraian, **errebolberra** aldean zeramala egiaztatu, eta kalerantz abiatu zen, urduri samar baina adoretsu. Migel Angel Mintegi

Errebolberra destatu eta katua sakatu zuen. Harkaitz Cano

Baina nik segitzen nuen alemanen parabellum, **errebolber** eta metraileten irispidean. Fernando Rey

Gau hartan, jelosia kontuak zirela-eta errietan, gizonak emakumea jo zuen eta **errebolber** bat ipini zion lokian. Koro Navarro

Alias komandanteak, azken finean, bere zorroan sartzen zuen berriro **errebolberra**. Josu Zabaleta

Uhalezko gerri kartutxeran daraman **errebolberrarekin**. Joseba Sarrionandia

Gauean, osatu dute behinik behin **errebolberra**, eta danborra hiru balarekin betetzen hasi dira. astiro Altxatu zuen **errebolberra**, eta, poltsikotik sei bala atera ostean, errekamaran sartzen hasi zen. Patxi Zubizarreta

Arnasa hartu, **errebolberra** ferekatu (nahiago zukeen benetakoa balitz!), eta zeharkatu zuen ezkaratz dotorea. lantegiko patioan zakur tzar bat zeukan eta idazmahaiko tiraderan, mundu guztiak zekien, **errebolber** bat. Migel Angel Mintegi

Errebolberra atera eta, astiro, eskuaz arma otzan eta lasaiaren pisua neurtzen ari balitz bezala, neskari eman zion. Jose Morales

Batzuetan bagoian sartzen da, ibiltzea dugun hilotzetan bere oparia ezti-eztia hautatzen du, hilkintzaren bozkaria eta plazerra begietan, bere **errebolbera** ateratzen du eta hurbiletik tirokatzen. Michel Oronoz

Aurrekoak nahikoak ez badira azken arrazoibidea hauxe izan liteke - **errebolberra** atera eta kopetatik gertu jarri zion-. Migel Angel Mintegi

Weinerrek, **errebolberraren** ahoak bera apuntatzen zuela sentitu zuenean -hatzaren zirkin bat aski zen balak bere bularra zulatzeko-, [...]. Anton Garikano

Ikusi zuten bala bat falta zitzaiola **errebolberrari**, Pizzi hil zuen tiroa lokitik sartu zitzaiola, balaren kalibrea Pizzik eskuan zuen **errebolberraren** berbera zela. Koldo Biguri

Esaiozu **errebolberra** hartzeko. Harkaitz Cano

Atea ireki eta neska bat agertu zen, eskuan **errebolber** bat zuela, mutila destatuz. Lopez de Arana

Tira, goseak nago, buka dezagun lehenbailehen: non dago txostena? · **errebolberrarekin** burua jasoarazi zion. Migel Angel Mintegi

21 **errebolber** eta pistola bat lapurtu dituzte Bilboko arma denda batetik. Berria - Euskal Herria

Pistolari haietako batek, **errebolberraz** tiro egin zidan tipo dotore hark, hain zuzen, espainieraz hitz egin zuen. Alberto Ladron Arana

Bikain gobernatzen zituen belaontziak, ezin hobeto egiten zuen **errebolberrarekin** tiro, guztiz leiala zen hala adiskidetasunean nola maitasunean, eta itsuki sinesten zuen "ohorezko hitzean". Jose Morales

Arau propioak dauzka, **errebolberrez** idatziak. Berria - Kultura

Ate ondoan elkartuko ziren eguerdiko ordu batean, bonba eta **errebolberrez** armaturik, beraren zain. Jose Morales

Has zaitez -eskua ahotik kendu eta **errebolberra** saihetsean iltzatu zion, min egin arte-. Migel Angel Mintegi

Tiro egin nahi izan zidan, **errebolber** batekin. Anton Garikano

Bazter batera joan, tu egiteko bezala makurtu, oraindik ardo-usaina zeriola **errebolberra** ahoan sartu, eta tiro egin zuen. Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Halako batean, Mr. Goldsteinek **errebolber** berri eta distiratsu bat salmahai azpitik atera eta erreportariari destatu zion. Lopez de Arana

Errebolber kromatu bat atera zuen ingelesak jakatik. Xabier Aranburu

Begiak erdi hertsirik, edozein zaratots edo marruma entzun bezain pronto itzarririk, erne, ohoinak zitezkeelakoan gaueko mamuen zelatan, inoiz erabili gabeko **errebolber** herdoildua magalean eta ontziko labana eta ganibet guztien aho zorrotz biluziak eskura. Xabier Mendiguren Elizegi

Gainerako terroristei lehergailuak eta erloju-bonbak atzeman zizkieten, eta Vernerri **errebolber** beltz bat besterik ez. Jose Morales

Callaghan inspektore basatia, **errebolber** erraldoi batekin justizia egiten trebea. Migel Angel Mintegi

Oraindik eusten zion **errebolber** astunari. Alberto Ladron Arana

Sofapean ezkutatu berri zuen **errebolber** kargatua atera zuen, leihora inguratuz. Harkaitz Cano

Orduan, Mamu, hitz erdi bat esan gabe, denda barrura joan zen, oihal-bilkarien artetik 9 mm-ko **errebolberra** atera, milizianoen aurrera irten, eta hitz bat besterik ez zuen esan: *djaxe,* eta buruan hiru tiro eman zizkion talde-buruari.38ko **errebolber** bat eta 9 laburreko pistola. Juan Kruz Igerabide

Beldur ziok armari, sei balako **errebolber** kargatuari. Anton Garikano

3 (hitz elkartuetan)

Maiz ulitxekin ziren; orduan larderia eta ukaldiak usu agertzen ziren; **errebolber** tiroak maiz gintuen entzuten. Herria

Gavarden pistolaren itzala ikusi zuen, **errebolber** profil ikaragarri handi bat, beltz-beltza kristalen zurbiltasunean, kanoia luzaturik. Karlos Zabala

· -Scalako kritikari musikala izan behar da, tonalitateagatik bereizten jakiteko nola egin ote den tiroa, errepikapen-pistola batekin ala danbor-**errebolber** batekin! Koldo

Biguri

Sammuel Colt: Colt **errebolberraren** sortzailea. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duzu errebolberra (3); **eman duzu errebolberra** (3); **errebolber bat** (30); **errebolber bat zeukan** (3); **errebolber batekin** (3); **errebolber baten** (3); **errebolber eta** (3); **errebolber hori** (3); **errebolberra atera** (8); **errebolberra atera zuen** (3); **errebolberra hartu** (3); **eta errebolber** (4); **eta errebolber bat** (3); **eta errebolberra** (8); **zuen errebolberra** (5)

---

errebolberdun *izond* errebolberra duena.

Beste batzuetan cowboy **errebolberdunak** imajinatzen ditut, kiowen moduan jantzitako Gorria eta bion ihesa ustekabean babesten. Joseba Sarrionandia

---

errebolbertxo *iz* errebolber txikia.

Ikaragarri nabarmentzen zen urrezko erloju kate txerlotu bat, erdian katenbegi handiak zituena, eta anitz zintzilikario pinpirinez hornitua: **errebolbertxoa**, ganibetatxoa, hortz eskuila eta zintzarritxo maitagarri txiki-txikia, dena urre puru-puruzkoa. Matías Múgica

---

errebolta 1 *iz* matxinada.

Ahantzi nituen denbora laburrez ene barneko kezkak eta ere **erreboltak**. *La rebelión de las masas* (1930, *Masen* ***errebolta***) ospetsuan jasotako pasarteak badu egunerokotasunik. Piarres Aintziart

Apostasia Elizaren kontrako **errebolta** da, sinesmenaren ukoa baino gehiago. Berria - Harian

Christian Vieri Italiako aurrelariak ukatu egin zuen atzo jokalariek Giovanni Trapattoni hautatzailearen aurkako **errebolta** piztu dutenik. Berria - Kirola

Handik gutxira, **erreboltak** hasi ziren iparraldean. Berria - Mundua

Han Sudanen menpeko zaghawek zuzentzen dute **errebolta**. Berria - Mundua

Hiri hori antzinatik erregeen aurka jaiki eta bertan matxinadak eta **erreboltak** gertatu izan direla agertu da. Elizen arteko biblia

Errebolta gauzatu da, baina ikusteko dago tuneletik nola aterako diren. Berria - Ekonomia

Kondearen kontrako **errebolta**. Iñaki Iñurrieta

Biarnon, papisten **erreboltak** bortu aldeko ibarretan hartua zuen indarrik handiena. Aingeru Epaltza

Pilotarietako batzuk, Ibarluzea anaiak-eta, ez dira egon, faxisten **erreboltak** berton harrapatu zituelako. Edorta Jimenez

Iruñean ez bezala, eskualde horretan **erreboltaren** hotsak gazte andana ateraraziak zituen beren etxeetatik, gorrotoak eta loria-nahiak ziztaturik. Aingeru Epaltza

68ko maiatzeko **errebolta** ez zen alferrik gertatu. Txema Ramirez de la Piscina

Hotsek diote Napoleonek ihes egin duela Elba uhartetik, gudaroste berria antolatzen ari dela herriz herri, diru garbi eta ohore handiak eskainiko dizkiela **erreboltan** parte hartzen dutenei. Anjel Lertxundi

1968: Maiatzako **erreboltetan**, [Sartre] ikasleen alde agertu zen. Berria - Harian

Bi hilabete gabe, iraungia zen **erreboltaren** txinparta, eta hilik edo preso espainolari buru ematera ausartu ziren gehienak. Aingeru Epaltza

Zeren eta haren pintzelada bakoitza hitz bat zen, protestarako eta **erreboltarako** deia ere izan zitekeena. Joan Mari Irigoien

Bidegabekeria txikienaren kontra oldartu eta **erreboltari** ekiteko prest egoten zen beti. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Egia zen **errebolta** militarrarena. Jon Maia

Asiako **errebolta** helenikoaren azken ilintiak K.a. 493an itzali ondoren, Europako Helasen aurkako ekintzak hasi zituen berehala. Iñaki Mendiguren

Neobabiloniar Inperioak, oro har, bere asiriar mugagizonen basakeriaren aurka mundu babilonikoaren barruko **errebolta** morala azpimarratzen zuenak, azkenean Juda deserrotu zuen, Asiriak Israel deserrotu zuen bezalaxe. Iñaki Mendiguren

Mugimendu sozialak eta injustiziaren kontrako **errebolta** baketsuak sortzea. Berria - Gaiak

Errebolta isil bat sentitzen zuen inguruan; hitz bat larregi esan eta eztanda egingo zuen. Karlos Zabala

Bestelako Komunikazioa matxinada-ekintza bat da: asperdura, hipokrisia, manipulazioa, merkatuaren diktadura, infantilismo eta gorrotoaren aurka altxatzen den **errebolta** horizontala eta demokratikoa. Txema Ramirez de la Piscina

Erabateko **errebolta** odoltsuak bakarrik ekar dezakeela ametsaren gauzatzea. Hasier Etxeberria

Jendeak "iruzur" deitzen dion hori guztia, egoera baten eta pertsona baten aurka gorputzek egiten duten **errebolta** goibel eta ziztrina, gertaera hutsala bihurtzen duk, gure bizitzaren azkenetik begiratzen badiogu -hutsala eta ia penagarria-, istripu baten edo gaizki-ulertu baten antzeko zerbait. Xabier Olarra

Dagoeneko aurkitu dugu, zibilizazioen arteko topaketen eremuan, intelligentsia baten sorreraren eta horren egileen aurkako **erreboltaren** arteko denbora-tarteak batez beste 137 urte inguruko luzera izan duela. Iñaki Mendiguren

3 irud/hed

Pentsatze hutsarekin **errebolta** sumatu zuen zangartean. Unai Iturriaga

4 bihurgunea.

Ibaiertzetako **erreboltetan** kiribiltzen den haizea bezalakoa da. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako errebolta (4); **kontrako errebolta** (4)

---

erreboltari 1 *izond/iz* erreboltatzen dena.

Pentsa liteke gazte **erreboltari** haien iraganeko legeak, demokrazia malenkonizatua, euskara sakramentala, eta antzekoak pentsamendu premoderno baten gogorapen etnikoaz aparte zer besterik ote diren. Joseba Zulaika

Propaganda egiten nuen inoren beldurrik ez duen fanatiko **erreboltari** baten moduan. Pello Lizarralde

Berebiziko adorea eta adimena baliatu beharko zituen **erreboltari** eta inbaditzaileen lerroak zeharkatzeko. Karlos Zabala

2 (izenondoekin)

Maradona, azkenean, 1994ko Munduko Kopatik bota zutenean, futbol zelaiek **erreboltari** zaratatsuena galdu zuten. Berria - Kirola

Baina niri ez zitzaidan nagusitzen, izan ere ni **erreboltari** harrapaezina bainintzen Nire lehengusu ilegorriari eta bioi oso ideia ederra iruditu zitzaigun gu ere atxikitzea eta **erreboltari** komunistak bihurtzea askatasunaren aurkako alderdiko De Gasperi agintari engainatzailearen aurka. Pello Lizarralde

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kazem Daud Segurtasun Nazionalerako estatu idazkariak adierazi zuenez, «**erreboltari** gune bakan batzuk» garaitzea besterik ez zaie geratzen okupazio indarrei. Berria - Mundua

Poliziako nagusiek lanpostuz aldatu zuten Gallinone, eta gobernuaren aurkako **erreboltari**-harrapatzaile izan beharrean lapur-harrapatzaile jarri zuten. Pello Lizarralde

Ez daki Ivan Ogareffek, **erreboltari** rola ez ezik, traidorearena ere jokatu behar duela. Karlos Zabala

Horrela egin baino lehen abadeak **erreboltari**-jarrera bat izan zuen, Kuban utziko zuen itzala gaurdaino luzatu behar ziona. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta erreboltarien (3)

---

erreboltatu, errebolta(tu), erreboltatzen **1** da *ad* matxinatu.

Zosimoren pasarte baten bidez frogatzea ezen, Honorioren garaian, Armorikako aldea eta Galiako beste probintziak **erreboltatu** egin zirela, eta errepublika modukoa eratu zutela. Iñaki Iñurrieta

Orduantxe eman behar du Estatuak laguntza bizkor, dela herriak sofri ez dezan, dela **errebolta** ez dadin: kasu honetan behar dira ospitaleak, edo antzeko antolamenduren bat, miseria horri aurre hartuko diona. Iñaki Iñurrieta

Don aldeko kosakoak Volgan zehar bildurik omen daude eta **erreboltaturiko** kirgizen aurka egitera omen doaz. Karlos Zabala

2 (era burutua izen gisa)

Erreboltaren arrazoia aztertu izan da soilik **erreboltatuak** kanpokoak direnean. Markos Zapiain

---

erreboluzio *(orobat **erreboluzione**)* **1** *iz* iraultza.

Erreboluzioaren eta beste krimen askoren errudunak izan direlako maisuak. Joseba Sarrionandia

Gehienbat Errusiako **erreboluziotik** ihesi etorritako aitonen seme probretuak bizi omen ziren bertan. Alberto Ladron Arana

SS berrietan sartu ginen, erakunde horrek ederki islatzen baitzituen gure **erreboluzioaren** idealak: ordena, garbitasuna, zerbitzu-sena... Alberto Ladron Arana

Baina historikoki iraultzaren kontzeptua burgesiarena eta burgesiaren teorikoena izan da (terminoa bera astronomiatik datorrelarik, **"erreboluzioa"**). Joxe Azurmendi

Emeki emeki, Behenafarroa arrunt frantsestuko da, azkenik **Erreboluzione** garaian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 bira.

Baina potentzia maila horretan ez dira asteburu osoa irauteko gauza izan, agerikoa baitzen Renault eta BMW motoreetan minutuko **erreboluzioak** mugatu zituztela modu zuzenean potentzia jaitsiz. Berria - Kirola

3 irud/hed

Kusturicak errealismo magikoa jorratzen du, pertsonaiak ehunka mila **erreboluziotan** ipiniz, gertakariak arrapaladan elkar lotuz, betiere eromenaren mugetan dagoen giroa sortuz. Berria - Kultura

---

erreboluzione ik **erreboluzio**.

---

errebortxatu, errebortxa(tu), errebortxatzen du sendotu, indartu.

Era berean eutsi eta **errebortxatu** egiten da bere indar guztian jainkozko igoera horretan ezinbestekoa den eginbeharra. Joan Mari Lekuona

Azken horretan lehenago "Magister" gradua lortu zuen, bere irakatsien goi-mailak **errebortxaturik** bere izenari ezin banatuzko eran loturik geratuko zen titulua bera hil eta gero ere. Joan Mari Lekuona

---

errebot ik **errebote**.

---

errebotatu, errebota, errebotatzen du *ad* bote egin.

Pareta jo eta **errebotatu** egin du. Itziar Otegi

Mutil baten buruan **errebotatu** zuen pilotak. Koro Navarro

Gutunak gelara sartzen entzun zuten kanpotik, paretetan eta lurrean **errebotatzen**. Iñaki Mendiguren

Barre algara kontrol bakoa irten zitzaigun batera eta sukaldeko baldosetara eta baldosetatik geure belarrietara **errebotatu** zuen. Sonia Gonzalez

Ahotsa urrutitik zetorkizun, oihartzunaz, kontsultako pareta garbietan **errebotatuz**. Lourdes Oñederra

---

errebote *(orobat **errabote** g.er. eta **errebot** g.er.)* **1** *iz* errebotatzea, bote egitea.

Indarraren eraginez, pilotak **errebotea** egin zuen, panpina jo eta gero. Koldo Biguri

Bilintxen pasadizoa (galtzak janzten ari zela bonba **errebotez** bere gelan sartu zenekoa). Martin Anso

2 irud/hed

Hitz haiek oihartzun berezia eragin zuten entzuleen bihotzean, baina non egin zuen **errebotea** oihartzun hark? Pako Aristi

Dardarkari bat sortzeko organo Artikulatzaileek oso laster egin behar dute dar-dar, irekitze-ixte laster eta erregularki errepikatuek [...] airea kolpeka botatzen duen **errebote** modukoa eginaz. Lourdes Oñederra

Atzeko paretan jotzen duen pilotaren antzera, ondoko esaldian jo du -**errebotean**- *arte* hitzak, eta espero izatekoa zen ibilbidea bat-batean zeharo aldatuta bihurtzen zaigu. Iñaki Arranz

Eta hori, don Lucasi **errebotez** egokitu zitzaiola, senargaiarekin baitzen dirudienez auzia. Juan Garzia

Non jotzen duten eguzki-izpiok -batzuek **errebotez**-, kanpora doaz berriro islatuta. Pello Zabala

3 frontoian, atzeko pareta.

Frontoian atzera eta aurrera ibili omen zen, poliki, **erreboteraino** iritsi, eta gero frontisera, eta hala behin eta berriz. Juan Kruz Igerabide

4 irud/hed

Binakako partidan legez, lagun bati utzi diot pilota eskutitz baten **errebote** parean, eta aste batzuen buruan iritsi zait erantzuna. Jokin Urain

5 xisteraz, aurrez aurre jartzen diren lau edo bost laguneko bi talderen artean jokatzen den pilota jokoa.

Sekulako partida ederrak izan dituk plaza huntan, herriko bestetan eta bertze anitz okasionetan: esku huska, Dongaitz familiakoak, Gallaztegi, Zapaterito, Saint Martin, Mondragones, Antxaño Aldudarra; joko garbian, Urruti, Txikito Kanbokoa, Enbil, Lemoine, Recondo, Madre; **errebotean**, Sarako Izarra, Donapaleuko Les Mixains. Michel Oronoz

Jakes Cazaubon eta Pierre Sabalo-k ohiko pilotaz hitzegin zuten, Behialako pilotasoro eta trinketetan finkatuz beren solasa, luze, **errebote** eta pleka jokoak azalduz. Herria

Ikusi behar dik, oraiko esku huska eta xisterazko jokoak, paretaren kontra egiten direnak, ez zirela haizu, aldiz ba **errebotea** eta laxua. Michel Oronoz

Bezperetarik landa gaztek pilotan ari behar dute: "laxoan, **errebotean** edo bederen plekan", molde hau ez zen oraino nagusitua. Xipri Arbelbide

Korrida egin ahal izaiteko, inguratu zuten oholesi batez Urbiaingo **Erreboteko** Plaza, non jokatzen baitzuten herritarrek pilotan igandeetan eta jaiegunetan. Joan Mari Irigoien

6 *ipar* errebotean jokatzeko plaza.

Atxiki nahi dituzte bastiza guziak, "Patxokia"n auzoko etxe publiko bat ideki, eta trinketeko parean, 25 zenbakiko bastizaren pareta antolatu **errebote** bilakatzeko. Herria

Igande huntan, tokiko pilotari gazte trebeak ikusi ditugu, bai trinketean, bai **errebotean**, esku-huska eta atxiki ttipian. Herria

Beraz igande huntan Baigorriko **errebotean** gure luzeko jokolariek izanen dute ohorea Pilotako Aste Handia idekitzeko finalean parte hartuz. Herria

Lehen ortzeguna, Pilota Plaza auzoan **errebotean**. Herria

Larunbat arratsaldean Futbol lehiaketa kirol zelaian eta haurren jokoak **errebotean**. Herria

Aratseko 7etarik goiti, kontzertua **errebotean**: Zpeiz Banako, Milanka, Niko Etxart&Hapa hapa. Herria

Meza ondoan **errebotean** zintzur bustitzea eskainia herritar guzieri EMAK HOR soinulariek alaituz. Herria

Usaian bezala, kamioia **errebotean** izanen da, zuen arropak uzteko. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bederatzi errebote (8); **bederatzi errebote eta** (4); **bi errebote** (3); **bost errebote** (6); **bost errebote lortu** (4); **defentsako errebotea** (3); **erasoko errebotea** (6); **erasoko errebotean** (7); **errebote bat** (3); **errebote batez** (4); **errebote batez beste** (4); **errebote eta** (31); **errebote eta bi** (5); **errebote eta bost** (3); **errebote eta zortzi** (3); **errebote gehiago** (3); **errebote gehiago hartu** (3); **errebote hartu** (4); **errebote jaso** (14); **errebote jaso zituen** (7); **errebote lortu** (27); **errebote lortu zituen** (21); **errebote pollitean** (4); **errebotea eta** (4); **errebotea eta kontraerasoa** (3); **errebotea jo** (3); **errebotean ere** (3); **errebotean gure** (3); **errebotean indar** (5); **errebotean nagusitzea** (3); **errebotean pilota** (3); **errebotean zintzur** (4); **errebotean zintzur bustitzea** (4); **erreboteko zuloan** (3); **eta bederatzi errebote** (4); **eta bost errebote** (5); **eta erasoko errebotean** (3); **eta errebote** (5); **eta errebotea** (4); **eta lau errebote** (4); **eta zortzi errebote** (5); **etan luzean errebotean** (3); **gure errebotean** (3); **hamar errebote** (5); **ibarrungo errebotean** (3); **lau errebote** (4); **luzean errebotean** (3); **ondotik errebotean** (4); **zazpi errebote** (6); **zazpi errebote eta** (3); **zortzi errebote** (8)

---

erreboteatzaile *iz* saskibaloian, erreboteak jasotzeko ardura duena.

23 bakarrik Lagun Arok, taldean ACB Ligako **erreboteatzaile** onena eduki arren: Frederic Weis. Berria - Kirola

---

erreboteka *adlag* erreboteak eginez.

Gizona bidean behera biziki basati gidatuz zihoala, jauzika orain eta **erreboteka** gero, auzo hartan ezkutatu behar izanez gero ezkutalekua non bilatuko zuen pentsatzen hasi zen. Aitor Arana

---

errebozatu *izond* arrautza-irinetan pasatua.

Bitartean ni bazkaria prestatzen ari nintzen, legatza **errebozatua**, arrain izoztua beti bezala, orduantxe jo zuen txirrinak. Mikel Hernandez Abaitua

---

errebuelo *iz* zalaparta.

Berandu; hartu egin zuen sagarra Leirek, dozena bat ale lurrera joan ziren; ingurukoak barrezka, **errebueloa** izan zen. Pablo Sastre

---

errebuelta **1** *iz* bihurgunea.

Elkarren ondoan egin zuten bide erdia; Oriotik Xuaira bidean dagoen **errebuelta** handienera iritsi zirenerako nekatuxeak zeuden bai bata eta bai bestea. Xabier Etxabe

Dena espero bezala doa harik eta, **errebuelta** txar baten atarian, neskak gidaria ohartarazi -"Kontuz **errebuelta** horrekin! Bernardo Atxaga

Bidearen gorabehera eta **errebuelta** etengabeak. Jon Arretxe

Beste bide batean, motor batek azeleratu egin zuen ia paroxismoraino eta segidan, **errebuelta** itxi batera iritsia zelako edo, ia isiltzeraino desazeleratu. Bernardo Atxaga

Horrentzat ez dago ez **errebueltarik**, ez marra etengaberik, ez bestelako trabarik gogoak ematen dionean aurreratzeko edozein neurritako automobilak. Jon Arretxe

Zeruan izarratu ederra zegoen eta elurrarekin bazterrak franko ongi ikusi eta Aireko **errebueltan** ezkutatu ziren arte egon ziren begira. Pablo Sastre

Ostatu atzeko bideko lehen **errebueltan** auto bat agertu da astiro. Alberto Barandiaren

Argiei jarraitzen die begiradarekin, **errebueltatik** agertzen direnetik **errebueltan** desagertzen diren arte. Alberto Barandiaren

Halako batean, izkina baten **errebueltan**, Jorgerekin egin du topo: agurtzeko keinurik ere ez dio egin. Iban Zaldua

2 irud/hed

Eguraldiaren **errebueltak** eta gora-beherak koarta-tenporekin loturarik baldin balute edo baldin badute, hori norbaitek usnatu eta antzeman duelako da. Pello Zabala

---

errebueltaka *adlag* errebueltak eginez.

Hauxe bai ziztadarik onena, indartsuena, zoragarriena; azkar gorputzetik gora eta behera, buelta eta **errebueltaka**. Sonia Gonzalez

---

errebuelto *iz* nahaskia. *iz*

Bien artean jan dute **errebueltoa**, sukaldea alderik alde betetzen duen zurezko mahai txuriaren alde banatan barreka, ia klandestinoki, aita iritsi baino lehen. Alberto Barandiaren

---

erredaktatu, erredakta(tu), erredaktatzen du *ad* idatzi, eskuarki txostenak eta kidekoak.

Modu erakargarri eta ulergarrian **erredaktatuta** egon beharko dute. Berria - Gaiak

Nork **erredaktatuko** du Miss Obaba eta bere lau damei buruzko informea? Bernardo Atxaga

Uste dut Autonomia Estatutuaren aurreneko artikuluan jasota dagoela, eta hain zuzen, elkarrekin **erredaktatu** genuen, eta hitzartu. Berria - Euskal Herria

Kanariar Irletako Parlamentuak 2000. urtean bertako Turismo departamentuari egindako enkarguaren arabera, enpresak proiektua **erredaktatu** eta behin betiko egitasmoa aurkeztu beharko lioke gobernuari. Berria - Kultura

---

erredaktore **1** *iz* erredaktatzen duen pertsona, eskuarki aldizkari eta kidekoetan.

Ikusia naiz erredakzioko laguntzaileak **erredaktore** bilakatzen, **erredaktoreak** sekzioburu, sekzioburuak erredakzioburu eta erredakzioburuak zuzendariorde. Aingeru

Epaltza

Horrenbestez, akziodun eta interes horiek dira **erredaktore** eta produktoreei bere irizpideak ezartzen dizkietenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Xabier Garmendia Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren garapenerako dokumentuaren teknikari eta **erredaktorearen** azalpenak dira. Berria - Euskal Herria

Uruguaiko *Brecha* astekariko **erredaktorea** da. Berria - Kultura

Erredaktoreak idatzitako txantxazko lerro jostalari batzuen ondotik, ikasle bik idatzitako gutun luzea zekarren, eurek egindako marrazkiez hornituta. Josu Landa

Irakurleek zuzendari eta **erredaktoreekin** harremanetan jartzeko erraztasun gehiago eman. Iñigo Aranbarri

Gisa horretan erdietsi zuen, nik baino lau hilabete lehenago, **erredaktorearen** estatus preziatua. Aingeru Epaltza

CATeko edo publizitate agentzia bateko **erredaktore** batek egingo zian, beste testu guztiok bezala. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lionel BUANNIC berriketaria, TV Breizh-eko lehengo **erredaktore** nagusia. Herria

Gutarteko **erredaktore** zaildu batek ez zukeen bertzelako irudirik agertuko, atalburuari prentsaurreko aspergarri baten berri ematerakoan. Aingeru Epaltza

Kulturako **erredaktore** nintzen Euskaldunon Egunkaria-n, aspaldidanik. Juan Luis Zabala

Itxierako **erredaktoreak** bere ukitu pertsonala uzteari uko egina zion behingoz, nire erreportaiei zegokienez. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan)

Ez zuen bikotearen helbidea, baina emazteak L.B. izena zuen eta harekin harremanetan jar nintekeen, **erredaktore** lanetan aritzen zen egunkarian. Aldean Dionisosi berari hartutako Yashica bat zeraman, astekari madarikatu hartan **erredaktore** eta argazkilari lanak, biak batera egin beharra baitzeukan. Joseba Urteaga

4 ***erredaktore buru*** *(ETCn **391** agerraldi; orobat **erredaktoreburu** ETCn **76** agerraldi)* egunkari edo aldizkari bateko erredaktoreen burua.

Baionan 10.000 pertsona departamenduaren alde biltzea gertakari garrantzitsua da berez, baina ez da aski Parisko **erredaktore burua** sakon interesatzeko. Berria - Euskal Herria

Forbes aldizkariko errusierazko edizioko **erredaktore buru** Paul Klebnikov herenegun gauean hil zuten, tiroz. Berria - Mundua

Alain LEBAUBE *Le Monde* egunkariko **erredaktore buruaren** gidaritzapean. Herria

Kubako oinetako-egileen aldizkariko **erredaktore buru** izendatu zuten 1923an, eta hortik *Carteles* aldizkarian lan egitera pasatu zen. Berria - Kultura

Ea **erredaktore buruaren** bahea pasatzen duen. Iñigo Aranbarri

Orain ez nuke erranen arrats hartan **erredaktore-buruarekin** liskartu nintzen, ala egunkariko sistema informatikoak erotu eta nire saileko testu guztiak ezabatu zituen. Aingeru Epaltza

Hiru urte geroago aurkitzen dugu **erredaktore buru** frantses kazeta batean: "le Progrès" deitua. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egunkariko erredaktore (3); **erredaktore buru** (10); **erredaktore burua** (3); **erredaktore buruaren** (3); **erredaktore lanetan** (3); **erredaktoreburu jose mari** (3); **mundua saileko erredaktoreburu** (3); **zuen erredaktoreak** (3)

---

erredaktoreburu ik **erredaktore 4**.

---

erredakzio **1** *iz* erredaktatzea.

Peñak atzo emandako argibideari jarraiki, Parlamentuko arduradunek erantzun zuten testuen arteko aldea txikia zela eta ez ziola eragiten lege proiektuaren **erredakzioaren** «mamiari». Berria - Euskal Herria

Erredakzio behin-betikoa alderdi bakoitzeko bina ordezkarik hitzartu zuten: UCDko Fernando Abril Martorell eta Jaime Ignacio Del Burgok, PSOEko Gabriel Urralburu eta Jose Maria Benegasek eta EAJko Carlos Garaikoetxea eta Juan Ajuriagerrak. Berria - Euskal Herria

Euskal komunikabideetan lan egiten duten emakume gehienek **erredakzio** lana egiten dute. Berria - Euskal Herria

Egitasmoak dioenez (oraindik **erredakzio** fasean da), Lukutik zazpi kilometroko zatia hasiko litzateke Etxebarri-Dibinaraino. Berria - Euskal Herria

Lan Eskaintza deitu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren Unibertsitateen legearen atal batek langileei buruz izandako **erredakzio** hutsa zuzentzeko eskatu zuen. Berria - Euskal Herria

2 aldizkari, egunkari edo kideko bateko erredaktoreen multzoa.

Gure **erredakzioa** erabat euskalduna da gaur egun. Berria - Euskal Herria

Berriako **erredakzioaren** funtzionamendu orokorraren berri asteartean jasoko dute, eta ostegunean eta ostiralean sailka ezagutuko dute eguneroko lana, bertatik bertara. Berria - Euskal Herria

Orain artean **erredakzioan** eta zuzendaritzan aritu naiz lanean, baina inoiz ez jendearen aurrean. Berria - Euskal Herria

3 aldizkari, egunkari edo kideko bateko erredaktoreen lantokia.

Erreportaiak kaleratu ziren hamar egunetan, Gostin izan zen Lertxundiren eta Berriako **erredakzioaren** arteko bitartekaria. Berria - Kultura

Zabalduta dagoen orrialdean, Ander's-eko **erredakzioaren** helbidea zirkulu batez inguraturik dator. Xabier Mendiguren Elizegi

*Berria*ren **erredakziora** heldu zen gutun batean aldarrikatu dutenez spray bati itsatsitako petardoa bota zuten. Berria - Euskal Herria

Frantzian eta Espainian lehen aldiz eta denbora berean gobernu sozialistak heldu ziren boterera, eta ZEN plana Parisko **erredakzioetara** pixkanaka ere zabaldu zen, Madrilen zeuden berriemaileen bidez: desinformazioa garatu, ezker abertzaleari ahal den eta leku gutxien eman, eta alderdi sozialisten hautu politikoak jarraitu. Berria - Euskal Herria

Bost guardia zibil **erredakzioan** . Berria - Euskal Herria

Istiluen egunean gaztea Donostiako **erredakzioan** , arratsaldeko txandan, lanean zegoela baieztatu zuen enpresa batzordeak. Berria - Euskal Herria

Ixone Urzelai, gasteiztarra hura ere, atzo askatu behar zuten, baina **erredakzio** hau ixterako orduan oraindik kartzelan zegoen. Berria - Euskal Herria

Atzo arratsean **erredakzio** hau ixterakoan, atxilotuak ospitalera zergatik eta zertarako eraman zituzten ez zegoen argi. Berria - Euskal Herria

ERREDAKZIOA -IRUÑEA@: Euskal Jai gaztetxearen eraikina Iruñeko Udalaren obra baimenik gabe eta Nafarroako Arkitektoen Elkargoaren ziurtagiririk gabe bota zuten behera. Berria - Euskal Herria

Udalbiltzak herri guztietan ospatu zuen Aberri Eguna; halere, alderdi politikoek ekitaldi propioak antolatu zituzten hainbat herritan @: **erredakzioa** . Berria - Euskal Herria

Erredakzioa -DONOSTIA@: Maria San Gil izango da gaurtik aurrera EAEko PPko lehendakaria. Berria - Euskal Herria

ERREDAKZIOA -BILBO@: Joan zen asteko igandean Frantziako Poliziak atxilotutako sei lagun euren etxeetako miaketetara eramango dituzte, Frantziako Poliziak Radio Euskadi irratiari atzo baieztatu zionez. Berria - Euskal Herria

4 ***erredakzio buru*** *(ETCn **82** agerraldi; orobat **erredakzioburu** ETCn **61** agerraldi)*

Ikusia naiz erredakzioko laguntzaileak erredaktore bilakatzen, erredaktoreak sekzioburu, sekzioburuak **erredakzioburu** eta **erredakzioburuak** zuzendariorde. Aingeru Epaltza

Agerkariko errusierazko edizioko **erredakzio burua** zen Paul Klevnikov. Berria - Mundua

1993an, ez harrokeriarik gabe, Laurent Joffrin, *Libération*-go egungo **erredakzio buruak** , zera zioen, Jean Paul Sartrek obraturiko egunkariak bere sortzaileak bilatu ez zuen helburua iritsi zuela: [...]. Iñigo Aranbarri

Erredakzio buruak etxera deitu eta nirekin hitz egin nahi zuela esan zidanean. Jasone Osoro

Neska -gure protagonista, gogora ezazue, 30en bat urte, sofistikatua e.a.- **erredakzio-buruarekin** . Xabier Mendiguren Elizegi

Nahiago nuke eszenatokia garbitzen duen emakume zahar eta ahula izan... hiriko egunkaririk handieneko **erredakzioburuaren** bulegoko belusaren gainean esertzea baino. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berriako erredakziora (3); **egunkarietako erredakzioetan** (3); **erredakzio aldera** (3); **erredakzio batean** (4); **erredakzio hau** (5); **erredakzio prozesua** (3); **erredakzioan eta** (3); **erredakzioan eta** (3); **erredakzioko bertze** (3); **erredakziora etorri** (3); **erredakziora iritsi** (4); **eta erredakziora** (3); **ko erredakzioan** (4); **ko erredakzioan** (4); **zen erredakzio** (3)

---

erredakzioburu ik **erredakzio 4**.

---

erredakziogune *iz* aldizkari, egunkari edo kideko bateko erredakzioaren gunea.

Londreseko BBCko egoitza nagusian eta **erredakziogune** ezberdinetan egin ziren protesta bilkurak, baita Manchester, Newcastle edo Eskoziako delegazioetan ere. Berria - Mundua

---

erredakziotxo *iz adkor* erredakzio xumea.

Bera ingeleseko ariketak egiten ari zen, eta **erredakziotxo** bat egin behar zuen gero. Josu Zabaleta

---

erredentore *izond/iz* erredimitzen duena.

Erredentorea omen da erlijioa. Berria - Kultura

Unamuno hau da, herri espainol intrahistorikoaren **erredentore** , eta horren salbazioaren amorez Estatu oligarkiko eta zentralistaren apostolu bilakatua, Bilbora etorri dena -ez Lore Juglare, baizik aita misiolari ("apostolu zibila"). Joxe Azurmendi

---

erredentorista *izond* Erredentore txit santuaren kongregaziokoa.

Reid Irlandako bake prozesuan bitartekari lanak egin zituen apaiz **erredentorista** da. Berria - Harian

Harold Good, Irlandako Eliza Metodistako presidente ohia, eta Alec Reid, apaiz **erredentorista** . Berria - Harian

---

erredentzio 1 *iz* erredimitzea.

Erredentzioaren doktrina gure Erlijio Santuko funtsezko misterioa da. Xabier Olarra

Zeren nire heresiak izan baitzitezkeen, agian, haien hil osteko **erredentzioaren** hasiera. Xabier Mendiguren Elizegi

Erredentzioaz eta zigorraz hasi ziren batzuk mintzatzen, baina laster asko utzi zituzten bazterrean. Joxan Elosegi

Ni, Chiquinhoren etxean, hautsa esnifatzen Fernando, Marcito, Miltinho, Eliana, Rita eta Laisekin, kokaren gauzak, garai hartan kontzientziaren benetako **erredentzioa** iruditzen zitzaidan, eta arrazoiaren eta praktikaren arteko uztartze perfektua. Karlos Zabala

Prozesuan, begiak kare biziz erreko ditu itsu gelditzeko helburuz, **erredentziorako** bidea horrela hobeto «ikusteko». Berria - Kultura

Oraindik **erredentzioaren** zain dagoen iragan zapalduaren ondare alternatiboa da hori. Joseba Zulaika

Britainiar administrazioak Indian zuen izaeraren **erredentzio** hau neurri batean Ekialdeko Indietako Konpainiaren erabakiari zor zaio. Iñaki Mendiguren

Mina ez zitzaiola **erredentzio** gertatu, sufrimenduak ez ziola pertsona hobea zenik sentiarazten. Imanol Zurutuza

Lur ilun, bekatu gabe eta **erredentzio** gabea, non gaitza ez den morala baizik eta oinaze lurtiarra eta gauzetan betiko dagoena. Anjel Lertxundi

Galapago uharteak, dortokak eta **erredentzio** elurrak ditut buruan, ura eztarrian behera kolpeka doala. Harkaitz Cano

2 (kartzela zigorrena)

Algecirasko espetxeak eskaera egin zuen Iñaki de Juana urriaren 25ean askatzeko, eta Gomez Bermudezek zigorra murrizteko 27 eguneko **erredentzioa** ukatu eta «kontua argitu arte irteera data berririk ez emateko» agindu zion Algecirasko espetxeari. Berria - Euskal Herria

Espetxe **erredentzioak** zigor guztien baturari ordez, bere garaian euskal presoari ezarritako 26 zigorretako bakoitzari aplikatuko zaizkio. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erredentzioak onartu (3); **erredentzioak zigor** (4)

---

erredikulu 1 *izond* irrigarria, irri-egingarria.

Nik bakar-bakarrik dakit, gero, furgonetara itzulitakoan, batere axolarik gabe ikusi dudala Adelaren bideoaren pantailaxkan ikusarazi didaten ilunabarraren errepikapen **erridikulua** . Patxi Zubizarreta

Nire izen-abizenak zeramatzan mutiko haren keinu **erridikuluak** . Iban Zaldua

Amodio gutun guztiak dira **erridikuluak** . J.M. Olaizola "Txiliku"

1947. urtean enpresako bere partea saldu egin zuen -egoera ikusita jaso zezakeen diruaren zati irrigarri eta **erridikulu** bat bakarrik jasota- eta pintura surrealistari eskaini zizkion bere ahalmen guztiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hitz horiek entzun zituenean, egia esan, Alberto ez zen gehiegi arduratu, aitak halako solemnitate kasik **erridikuluarekin** hitz egin ohi zuelako, baina, une hartan, oihartzun siniestro batez durundatzen ziren bere burmuinean. Iban Zaldua

Irudi **erridikulu** samarra zeukan, han gela erdian zutik kieto, kantzontzilotan eta kamiseta erdi jantzita. Joxemari Iturralde

Erridikulua iruditu zitzaidan zu bezalako mozolo batek hainbeste buruhauste sortu izana, tamalgarria, baina gauza horiek gertatu egiten dira eta perspektiba behar izaten da ulertzeko. Eider Rodriguez

Gela barruan **erridikulua** sentitu naiz karikaturaren moduan, satelite artifizialaren moduan, trapu zaharraren moduan, postal turistikoaren moduan. Joseba Sarrionandia

Aldi berean, **erridikulua** zen eta bazuen zerbait hunkigarri "fedea" galtzen ari zen Txokorentzat. Itxaro Borda

Banekien zentzugabea zela, **erridikulua** guztiz. Juan Luis Zabala

Bere enbarazuaren arrazoia izenik gabeko tramankulu hura zen, eta ez zion izenik lotzen, deitura ezagunak itxuragabeak iruditzen zitzaizkiolako, pitilina umekeria bazen, **erridikuluak** baitziren txoria, berdela, toleta, eta zentzugabeagoak eta barregarriagoak beste izenmodu batzuk. Joseba Sarrionandia

2 *iz* irrigarrikeria, egoera irrigarria.

Lotsa eta **erridikulua** . Joseba Sarrionandia

Hamar segundo behar izan zituen lau hitz horiek josteko, bere egoeraren **erridikuluaz** jabetzeko. Unai Iturriaga

Igual pentsatuko duzu **erridikulu** samarra dela hau dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Autobusean neure burua hain barregarri ikusirik, konturatu gabe gogoa Gasteizeraino joan zait, seguruenik hantxe eta, hain zuzen ere, autobus batean, sentitu nuelako nire bizitzako **erridikulurik** handiena. Patxi Zubizarreta

Eta gaur, behinik behin, ez zaigu harremana apurtu eta, egindako **erridikulua** gorabehera, nik uste baino hobeki egon naiz. Patxi Zubizarreta

Agian ez genituzke nahastu behar lotsa eta **erridikulua** egiteko beldurra. J.M. Olaizola "Txiliku"

Duintasun osoz alde egin zuen jangelatik, hori onartu behar zen, alde egiterakoan ez zuela **erridikulurik** egin. Joxemari Iturralde

---

erredimitu 1 norbait egoera deitoragarri batetik libratu.

-Zu izan zara denbora honetan guztian Rip van Winkle, maitasunak **erredimitu** duen loti arrotza. Aritz Gorrotxategi

Nik, berriz, horren ordez, **erredimitu** egin nahi nuen, barkapena lortu ekintza eredugarri baten bitartez. Bernardo Atxaga

Beste aukera bat eskaintzen zion bizitzak, iraganeko kalteak konpontzeko beste abagune bat, bere burua **erredimitzeko** bide bat. Aritz Gorrotxategi

2 irud/hed

Galdutakoen memoria **erredimitzeko** modu bakarra: euskal berpizkunde berri bat. Joseba Zulaika

Haren sakrifizioak gure euskaltasuna posible egin bazuen, haren bizitza hain gaztea gaur egun **erredimitzeko** modurik beharrena ez ote den haren ondorengoon sakrifiziorik eza, hori galdetuko genioke. Joseba Zulaika

Nolako aukera eskaintzen ari zaidan Eustakio, neure burua **erredimitu** beharra daukat, ematen dit horraino kaskoak. Koldo Izagirre

3 (era burutua izenondo gisa)

Bera ere, nolabaiteko Rip van Winkle bat zen; Rip van Winkle **erredimitua**, alabaina. Aritz Gorrotxategi

---

erredio ik **erredios**.

---

erredios *(orobat **erredio** g.er.) interj* harridura edo haserrea adierazten duen hitza.

Dolmancé: A! Errekoño! **Erredios**! Errekristo! Alda gaitezen, ezin dut gehiago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ai! **Erredios**! Nolako hesola!. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

A! **Erredios**! Zein ipurtalde ederra!. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dago kuidadorik, neure artean nik, baina etxetik bota, hori ere ez, **erredios**!, oinak aurretik ditudala ez bada behintzat. Karlos Linazasoro

---

erreditu *iz* kapital baten sortzen duen interesa denbora tarte jakin batean. ik**korritu**[2]**; irabazkin**.

Kontratuaz denaz bezainbatean, **erreditu** tasa zentzudunaren aldeko apustua egiten du atariko hitzaldiak, lukurreriaren gehiegikeriak ostendu nahian. Andres Urrutia

---

errediza *iz* altzaria.

Dena utzi, etxeak, **erredizak**, lurrak, eta alde. Gotzon Garate

Gelak eta **erredizak** zinez hirugarren mundukoak dira. Gotzon Garate

Bezperako kafearen lapikoa berotzen ipini, irratiaren azpiko **erredizatik** hiru arrautza, eta arasaren goiko apalean paperez bilduta zegoen hirugiharretik lau xerra hartu zituen. Josu Landa

---

erredoblatu, erredobla(tu), erredoblatzen du *ad* areagotu.

Eta baninderamaten, eta Nenbok bere kantua **erredoblatu** zuen, nola zisneak hiltzerakoan. Joan Mari Irigoien

---

erredoble *iz* danborraren edo kidekoren baten joaldi bizia.

Cioran errumaniarraren bila ni, eta hara non, Euskal Herriarekin lotutako poeta batengana ekarri nauen ibilaldiak: Durangoko hondakinei hileta **erredoblea** jo ziena, Vallejo; Gernika eta Bilbo gogoan izanda idatzi zuen poeta errepublikazalea, Vallejo. Harkaitz Cano

Hileta **erredoblea** Durangoko hondakinei Vallejok! Iñigo Aranbarri

---

erredola *(orobat **errodela** g.er.)* **1** *iz* ezkutua, harma babesgarria; armarria.

Ezpatak eta **erredolak** ekarriko dituzte, basurdearen itxurako buruoskolak, uzta ugalarazteko aztieleak, kosmogonia lausoak, hunoen eta godoen alegiak. Juan Garzia

Armarria hor dago, baina urteek ezabatu egin dute **erredola**. Koldo Izagirre

Sancho Périz Aguirrekoa, tunika beltz eta kapilu lehuna duena; Fortún Sanchez Oriakoa berriz, altzairu mailazko kota eta idi larruzko **erredola** duena; Garzes Arbizukoa harako hura, hamalau heriotzen egile krudela.Zaldunak baziren eta zaldizkoak, ezpatak eta azkonak bazituzten, zilarrezko armadurak, kaskoak eta ere **erredolak**. Patziku Perurena

Santillana del Mar da herri kozkor bat, dena jauregiz, komentuz eta palazioz egina; gehienak **erredola** gaitzekin edertuak. Herria

Haurra neska eta aitoren alaba delarik, **errodela** errazkiago ibil dezan burdin gorritu baten bidez ezkerreko bularra mozten diote. Aurelia Arkotxa

2 irud/hed

Hasian hasi, urtero arma gehiago hemen eta han eta haien kontra jokatzeko, behar zen **erredola** gisako bat ezarri eta eraiki Estatu Batuetako zeruan. Herria

Beraz azkartu gogo du mizilen kontrako **erredola**. Herria

---

erreduktore *iz* erreduzitzen duen tresna.

Beste zenbait gauzaren artean, **erreduktoreak** egiten ditue, barkuetan, eolikoetan, zementu-, azukre-, paper-fabrika, laminazino, zentral hidrauliko eta holakoetan behar diranak. Xabier Amuriza

---

erredukzio *iz* erreduzitzea.

Psikanalisten **erredukzioek** ere ez ninduten asetzen. Piarres Aintziart

Arrazoimen hutsaren esperimentu honek kimikariak egiten duenaren antza handia du, noizbehin **erredukzioaren** saialdia baina eskuarki jardunbide sintetikoa deitzen dioten esperimentuaren antza du beraz. Ibon Uribarri

Algebraren jardunbidea bera, bere ekuazioekin, beraietatik **erredukzioaren** bitartez egia frogarekin batera sortzen dela, ez da eraikuntza geometrikoa, baina bai karakteristikoa. Ibon Uribarri

---

erredukzionismo *iz* elementu konplexuak sinpleagoetara erreduzitzeko joera.

Erredukzionismoaren bigarren dogman oinarrituta, "dogmarik gabeko enpirismoa" defendatuz. Askoren artean

Hau dio, laburki, **erredukzionismoak** : perpaus orok errealitatearekin erlazio zuzenean dauden perpaus sinpleagoetara murrizgarri izan behar du esanahiduna izateko. Askoren artean

Bizia zatiezina dela aldarrikatzen dutenen oihuak gorabehera, **erredukzionismoa** nagusitu da behin eta berriro. Juan Garzia

Erredukzionismoa ontzat ematen badugu, "esanahi" kontzeptua (eta beraz, baita analitikotasuna ere) erabilgarri eta ulergarri egingo dugu. Askoren artean

Biologiaren historiak zera ematen du: ibilaldi luze gorabeheratsu bat, aurretiazko asmo zehatzik gabea, materialismorantz, **erredukzionismorantz** eta mundu biziaren osaera- eta funtzionamendu-batasunerantz. Juan Garzia

---

erredukzionista *izond* erredukzionismoari dagokiona; erredukzionismoaren aldekoa.

Kontzeptu horiek argi litezke teoria **erredukzionistak** egokiak balira, baina Quinerentzat teoria horiek enpirismoaren bigarren dogma osatzen dute. Askoren artean

Hamarkada luzetatik hona "holistak" eta **"erredukzionistak"** , osotasuna ikertu nahi dutenak eta parte bakoitza ikertu nahiago dutenak, aurrez aurre jarriak dauzkan borrokan, badirudi bigarren horiek dutela gero eta hurbilago garaipena. Juan Garzia

---

erredundante *izond* erredundantzia inplikatzen duena.

Opari **erredundanteak** izan ohi dira hauek: erretzaile bati hautsontzia, bizikleta zale bati bizikleta, irakurtzale amorratu bati liburua. Joxerra Garzia

Egia esan, idaztea ekintza **erredundantea** da, guztia esana dago eta. Iban Zaldua

Adierazpen eta adibide **erredundanteak** kendu. Askoren artean

Edozein iruditan badirela informazio asko eskaintzen duten zatiak eta badirela informazio gutxi ematen dutenak: informazio gutxiko zatiok ingurunean dagoeneko "esaten" duena baino ezer gutxi gehiago "esaten" dutenak dira, aurrez erabat iragar daitezkeenak; **erredundanteak** direla esaten da horiei buruz. Josu Zabaleta

Erredundante ez diren zatiak ziurtasunik ez dutenak izaten dira, aurrez iragartzekoak ez direnak. Josu Zabaleta

---

erredundantista *izond* erredundantziaren aldekoa.

Horren arabera, badirudi Tarski egiaren ikuspegi **erredundantista** batera gerturatzen dela, hau da, perpaus bat egiazkoa dela esatea perpaus hori esatea dela defenditzen duen teoriara. Askoren artean

---

erredundantzia *iz* errepikatze alferrikakoa.

Beste **erredundantzia** batzuk egiturazko erregulartasun nagusiek eragiten dituzte, simetriak batez ere. Josu Zabaleta

Irudi hartu batek izan ditzakeen informazioaren araberako bi antolamenduetatik, soilena pertzibituko da, **erredundantzia** gehien eskatzen duena, edo, gauza bera dena, irudia deskribatzeko informazio gutxien behar dena. Josu Zabaleta

Ikusmenezko irudi batean kolore edo argitasun homogeneo, etenik gabeko batek, edo norabidean ia aldaketarik ez duen soslai batek, eta horrelakoek sortzen dute **erredundantzia** . Josu Zabaleta

Sugearen buztana esatea **erredundantzia** ez bada. Unai Elorriaga

Hiru izan dira filosofian erantzun nagusiak: egia egokitasun gisa ulertzen duen teoriarena, egia koherentzia gisa ulertzen duen teoriarena eta **erredundantziaren** teoriarena. Askoren artean

Erredundantzian erortzen gara bestela, errealitatearen imitazio hutsean, eta ez arteak oinarri beharko lukeen errepresentazioan. Berria - Kultura

Agustinek graziaren laguntza **erredundantziaz** defenditzea kritikatzen dio, hots, laguntza hori ematen ez bada ere gizakiak nahiko aske direla bekaturik ez egiteko. Imanol Unzurrunzaga

---

erredura 1 *iz* suak edo gai erregarri batek larruazalean egiten duen zauria.

A.k **erredurak** ditu bere gorputzaren %45ean. Berria - Ekonomia

Erredurak zeuzkan larruazal osoan, zigarrokinen **erredurak** , eta saihetsen bueltan elektrodoenak. Unai Iturriaga

"Jainkoaren probidentziak" salbatu dio bizitza Führer-ari, eta urratu batzuk eta **erredura** batzuk baizik ez ditu izan. Josu Zabaleta

Hanka eta oina argaldu, okertu eta ihartu egin zitzaizkion, aiztoaren ebakia edo suaren **erredura** sentitzeko gai ez izateraino. Askoren artean

Eguzkia eta **erredurak** . Jokin Muñoz

Begiak sutan gorri eta ídor-idorrik geneuzkan biok, beira goriari luzaroegi begiratzez; oinak, berriz, izozturik, eta **erreduraz** beterik atzamarrak. Juan Garzia

Kondenaren ondorioa: hirugarren graduko **erredurekin** baina bizirik atera zela gizasemea. Harkaitz Cano

Eskularru pare birrindu nituen operazioan, eta behatzetan hirugarren mailako **erredura** bat edo beste lortu ere bai. Iban Zaldua

Erredura sentitu du berriz ere, biziagoa, minberagoa. Iñaki Iñurrieta

Gasak argazki kamera hondatu zion eta **erredurak** eragin dizkio larruan. Berria - Euskal Herria

Batzuetan, trastelekuan ematen zituen ordu luzeetan oroimena behartzen zuenean, ikuskari bitxi bat izaten zuen: argitasun berde itsugarri bat eta **erreduraren** mina bekokian. Iñaki Mendiguren

Erreduron ondorioak fisikoki larriak izaten dira, baina zauri psikologikoak askoz larriagoak dira. Berria - Gaiak

Zauri irekien **erredura** eta odolaren taupada bortitzak sentitzen zituen muinoian, bihotza hantxe edukiko balu bezala, lehertzeko zorian. Ramon Saizarbitoria

Jo eta titi-buruetan elektrodoak ipini zizkidaten; ondoren, bortxatu ninduten eta **erredurak** egin zizkidaten baginan. Berria - Mundua

Horietatik bi larri zauritu ziren, **erreduren** zainketa bereziko unitatean ospitaleratu baitzituzten. Berria - Ekonomia

Ez dakit dakizun, baina listua da **erreduretarako** erremediorik onena. Patxi Zubizarreta

Erreduretarako benden pakete bat eta burua bermatzeko aluminiozko tramankulu txiki bat. Oskar Arana

2 irud/hed

Maleta eskuan hartuta, bulegoko atea zabaldu nuen emeki-emeki, adrenalinaren **erredura** sentituz gorputzeko zain guztietan barrena. Alberto Ladron Arana

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Izan ere, **erredura** handia izan zen, belarri ondotik bekainerainokoa. Askoren artean

Autoari su loturik, bi ertzainek **erredura** handiak ere badituzte. Herria

Eskuetan **erredura** larriak ditudala ezin diat eskolarik eman. Anton Garikano

Lucyk esan du **erredura** gaiztoak zenituela. Oskar Arana

Baziren berrogeita hamar urte izeba Beatrice erizain zegoela ospitalean eta **erredura** hilgarriak zituztenak hartzen zituen departamentuaz arduratzen zen. Fernando Rey

Erredura txiki batzuk baino ez, ez da larria. Oskar Arana

Erredura antzeko bat sentitzen zuen bidazti basatiaren zartailuak jo zuen lekuan. Karlos Zabala

Aurpegiko **erreduren** arrastoak ezkutatzeko. Iñaki Iñurrieta

Zintzurrean izigarriko **erredura** senditzen dut, burdin erre baten ausikia bezalakoa. Michel Oronoz

Erredura Handietako Unitatean daude eta egoera bertsuan jarraitzen dute. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zitzaion **erredura** -arrasto bat baino gelditu, gertatu zitzaionaren gogoragarri. Askoren artean

- **Erredura** -markak! -esan zuen-. Iñaki Mendiguren

Kaputxa sutatik atera zutenean, ez zuen **erredura** aztarrenik. Askoren artean

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gortariren iritziz goitik behera pipiaturik eta zigarro **erreduraz** beteta zegoen traste nardagarri hura antigoaleko pieza paregabea zen Elseren begietara. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erredura bat (3); **erredura handiak** (3); **erredura larriak** (10); **erredura larriak eragin** (3); **erredura larriekin** (3); **eta erredura** (3)

---

erreduzitu, erreduzi(tu), erreduzitzen du *ad* kimikan, konposatu bati elektroiak irabazarazi.

Askotariko saioen artean, haitza hidrogenoz **erreduzitzekoa** ere egin genuen. hodian, kanpotik beroturik, hidrogeno-korronte bat iraganarazi genuen, hark nikelarekin loturiko oxigenoa beretu eta metal-egoerara **erreduziturik** -hots, biluzik- utziko zuen esperantzan. Juan Garzia

Gatz hori, berez, usaingabea da, baina erreakzionatu egiten du nola edo hala larruarekin, beharbada keratinaren disulfuro-zubiak **erreduzituz**, eta egun batzuetan kimikaritzat salatzen zaituen metal keru iraunkor bat jaregiten du. Juan Garzia

Askotariko saioen artean, haitza hidrogenoz **erreduzitzekoa** ere egin genuen. Juan Garzia

---

erreduzitzaile *izond* kimikan, konposatu bati elektroiak irabazarazten diona.

Gatz hori, bada, **erreduzitzaile** gogorra da, erran nahi baita irrikan dagoela bere elektroi jakin bi jaregiteko. Juan Garzia

---

errefau *iz* baratze landarea, sustrai mamitsu barne-zuria eta azal-gorria duena *(Raphanus sativus);* delako sustrai mamitsua.

Ziazerba eta mingarratz alorrek, **errefau**, arbi eta azenario zerrendek, patata eta aza landare handiek beren zamau erregularrak hedatzen zituzten, beren lurrustel beltza zabaltzen, hostoen mototsek berdetua. Karlos Zabala

Zorionez, neskameak **errefauak** ekarri dizkio. Monika Etxebarria

Bostetan bere merienda egiten zuen, arrautzak, **errefauak** eta sagar erreak, eta gauean salda batekin nahikoa izaten zuen. Joseba Urteaga

Patata frijituak gogotik gustatzen zaizkit, bi sosen patata frijituak eta eskutada bat **errefau** eta bazkalduta nago. Karlos Zabala

-Hona hemen konfitura gehiago -esan zuen etxekoandreak, platertxo batekin itzulirik-, eztiz gozaturiko **errefaua** da! Jose Morales

Bost gorpuak espaloian botata zeuden, eta gaur, ordea, **errefau** gorri pila bat ikusi uste zuen leku hartan bertan. Karlos Zabala

Bitartean, **errefau** beltz mardulek, doluzko oihalen gainean ipinita, zulo ilunpetsu batzuk uzten zituzten han-hemenka, bozkariozko esnaera gartsu haren erdian. Karlos Zabala

Haren mahaia **errefau** sorta bihurturik hornitzen ari beharko lukeen hildako mordo bat kondenatua dago alfer-alferrik luzaro irautera. Xabier Olarra

Ile-apaindegiko laguntzailea, tipulina ogi tartean eta **errefau** sorta bat gosaltzen zuena goizero. Anton Garikano

Sastrakak **errefau**- eta arbi-lore sail bat inguratzen zuen. Juan Kruz Igerabide

---

errefektorio *iz* konbentu edo apaizgaitegi bateko jangela.

Igarotzerakoan, begirada bat bota zioten **errefektorioari**, edonori jateko gogoa kentzeko moduko altuera baitzuen. Jon Muñoz

Dolcinori laket zitzaion **errefektorioan** lanpararen estalkiari begira egotea, non hamabi apostoluak ageri baitziren pintaturik, zurezko sandaliak oinetan eta kapa koxkorrak soinean. Juan Garzia

Esaten zuen oihal zurizko kapa-motzez jantzi beharra zegoela, Anaia Gutien **errefektorioko** lanpara-estalkian margoturik zeuden apostoluak bezala. Juan Garzia

---

errefera **1** *iz* pilota jokoan, sakea edo botea itzultzea; errefera duen pilotaria edo taldea.

Eta 15 etan oraino berdin ziren, trinketa ere bizia eta doi bat laburxagoa, pilota kuriosak altxatuz Anddek, eta joz gainera **erreferak**. Herria

Pentsa: batean sakean eta bestean **erreferan**, hemeretzi kintze egin ditu oronoztarrak. Herria

Heieri esker, firrindan hasi da partida, galtzaleek 3-0 lehenik, baina **errefera** ere hor zuten berehala, 9-3 markatuz tokikoek. Herria

Sakeak hamabost, **erreferak** esperantza. Edorta Agirre

Boteak 10, **erreferak** esperantza. Michel Oronoz

2 erantzuna.

Laster jabaldu zaie segur lehen ongi-etorrien uzkurraldi hura, eta ausartzia bildu dute berek ere ixtanteko mikroen aitzinean, bereziki punttuka eta ere Xalbador II-ari **errefera** emanez Mateo batek. Herria

Denboraren buruan ere, ez nekien nolako **errefera** ematen ahal nion haren gutun lotsagarriari. Janbattitt Dirassar

Laster ukan dut **errefera**: bizar pixka batekin grazia gehiago badudala. Daniel Landart

Didier Borotra-k **errefera**; auzapez kargua hartu zuelarik gisa hortako bizitegiak berrehun bat zirela orotarat eta orai badela sei ehunez goiti...! Herria

Ariel Sharonek, dei eginez ONUko nazioneen batasunari, badu bere **errefera**, galdeginez ahoan bilorik gabe ONU horren biltzar nagusi bat, Irania bere batasunetik kanpo ezar lezakeena. Herria

-Ez -lehorra izan da **errefera**. Koldo Izagirre

Errefera niri zegokidan, baina ez hitz, ez hitzondo gelditua nintzen. Aingeru Epaltza

Aitatxi ezjakina zen politikan, baina itsu batek ere ikus zezakeen Henrikek **errefera** eman nahi ziola bere koinatuari, sei urte lehenagokoen ordaina. Aingeru Epaltza

Aitatxi ezjakina zen politikan, baina itsu batek ere ikus zezakeen Henrikek **errefera** eman nahi ziola bere koinatuari, sei urte lehenagokoen ordaina. Aingeru Epaltza

Tortura horieri **erreferan**, amerikano baten lepo-mozte basa, irakiar batzuen ganik. Herria

Ertzainek ere tiroz **errefera**. Herria

---

erreferatu, errefera(tu), erreferatzen **1** du errefera egin. ik **errestatu**.

Ikusi dira bai artean kintze eder batzu, hala nola Serge Mayteren sare, Oçafrainen edo Ibarrolaren airea, Larrecheari **erreferatuz** baina ez egun haundietako katzakarekin. Herria

2 erantzun.

Baratzezainak, ene keinuari **erreferatuz**, agur bat igorri dit. Piarres Aintziart

Begien aitzinean dagokidan errealitate arruntaz hazten naiz eta gauzei **erreferatzen** diet, eskerrak bihurtuz, emaiten didaten hazkurria. Piarres Aintziart

Oinez doanak, badaki bere baitan duela indarra aurkitzen: patar gogorrean, izpirituak indarra neurri xuxenean manatzen duela, eta zangoek aldiz izpirituari erantzun goxoan **erreferatzen** diotela; ibiltzeak badauka halako erregulartasun baketsu bat. Piarres Aintziart

Nik **erreferatzen** bezala nion beroa, gorputzak hornitua zuen indarrak izate osoan baretasun sustagarria isurtzen zidala denbora berean. Piarres Aintziart

---

erreferatzaile *iz* errefera egiten duena.

Ainitzek nahiago dute bidarritarraren lagun, ezenez hari **erreferatzaile**. Herria

---

erreferendom ik **erreferendum**.

---

erreferendum *(orobat **erreferendom** g.er. eta **erreferondoma** g.er.) iz* lege edo proposamen bat onartzeko edo arbuiatzeko hiritarrek egiten duten bozketa.

Urtearen amaieran, abenduaren 15ean, jadanik idatzita zegoen Konstituzio berria onartzeko **erreferenduma** izan zen, eta %56arekin onartua izan zen. Pako Aristi

Frantzian ere, 1992ko irailean **erreferenduma** egin zen eta itunaren aurka zeudenek irabazi ez bazuten ere, ehuneko 51ko gehiengo eskasa besterik ez zen izan Itunaren alde. Iñaki Heras

46.000 hautesleren sinadura behar dute departamenduari **erreferenduma** antola dezan eskatzeko. Berria - Harian

Erreferenduma boikotatzeko deia egin zuten sunitek. Berria - Harian

Unea ez dela iritzita, Londresek **erreferenduma** atzeratu du. Berria - Harian

Zenbait herrialdetan **erreferendumak** eta guzti egin ziren: esaterako 1992ko ekainean Danimarkak **erreferenduma** antolatu zuen ituna berresteko. Iñaki Heras

Foruaren Hobekuntza delako hura atera zuten zuzenean patrikatik, hiritarrei inolako **erreferendumik** edo kontsultarik egin gabe. Pello Salaburu

Estatuaren Lege Organikoari buruzko **erreferendumera** deitu zuen 1966ko abenduaren 14rako. Rafa Egiguren

Ipar Euskal Herriko auzapezen bi heren **erreferendumaren** alde. Berria - Harian

De Gaulle Frantziako lehendakaria **erreferendumaren** sustengatzeko Aljerren zen abenduan. Itxaro Borda

Sud sindikatuak euskaraz eta frantsesez idatzi afixek **erreferendumean** ezetz bozkatzera gomitatu dute. Herria

Gure Euro deputatuaren iduriko, Europa gibelka abiatua da, Frantzia eta Herri beheretako **erreferendumetan** eza nagusituz geroztik. Herria

1997ko ebazpenak porrot egitearen errua Marokorena da, ez baitzuen errespetatu **erreferendumean** parte hartu ahal izango zutenen erroldaz Fronte Polisarioarekin hitzartutakoa. Berria - Harian

Testu gorena urriaren 15a baino lehen onartu beharko dute **erreferendumean**. Berria - Harian

1978ko udazkenean, Konstituzioaren **erreferendumean** abstenitzeko deia egiten zituzten afixak pegatzen ari zela, inkontrolatu talde batek Ander harrapatu eta bortizki jipoitu zuen. Berria - Euskal Herria

Erreferendumean baietzak irabazi arren, Itunak ez duela babes handia jaso esan zuen EAko presidenteak. Berria - Harian

Baia nagusitu aise **erreferendumean**. Herria

Alderdi Sozialistako presidente François Hollandek esan du **erreferendumeko** galtzaile bakarra Chirac dela. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herri saharararraren autodeterminazio eskubide zilegia defendatzea, **erreferendum** aske, bidezko eta gardena defendatzea askatasuna eta demokrazia sustatzea da. Berria - Mundua

Jarrera bat ala bertzea nagusitu, militante bakoitzak bere iritziaren arabera bozkatuko du Europako Konstituzioari buruzko **erreferendum** nagusian. Berria - Euskal Herria

Ez du aintzakotzat hartu nahi Zornotzako herritarrok hain **erreferendum** eredugarrian adierazi genuen iritzia. Berria - Euskal Herria

Hastapenean erraten zuten nazio bakar bat dela eta **erreferendum** bakar bat behar dela. Berria - Euskal Herria

Konstituzioaren 150.2 artikuluan oinarrituta, EAErako eta Nafarroarako galdeketa eta **erreferendum** lotesleak antolatzeko eskumena eskatzen du. Berria - Euskal Herria

Urtero banderak igotzearen kontua dela-eta sortzen diren ika-mikak konpontzeko, Bilbon **«erreferendum** txiki bat» egitea iradoki zien atzo Joseba Permachek Juan Jose Ibarretxeri eta Iñaki Azkunari. Berria - Euskal Herria

Erreferendum ez-ofizial batean gibraltardarren %98,97k Espainiaren eta Erresuma Batuaren arteko subiranotasun partekatuari uko egin zion. Berria - Mundua

Balizko **erreferenduma**. Berria - Mundua

Foruaren Hobekuntza delako hura atera zuten zuzenean patrikatik, hiritarrei inolako **erreferendumik** edo kontsultarik egin gabe. Pello Salaburu

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Demokrazia parte-hartzailearen formulak arautu beharko lituzke, horien artean lege ekimen herritarra eta **erreferendum** eskubidea. Berria - Euskal Herria

Reparo fasea sinaduren baliogarritasuna aztertu eta erabakitzekoa bukatuta, **erreferendum** eskaera antolatu zuen. Berria - Mundua

Konstituzioak bi **erreferendum** mota aurreikusten ditu. Berria - Mundua

Zapateroren gobernuak gai horien inguruko «konpromiso zehatzak» **erreferendum** egunaren aurretik hartzeko eskatu du alderdi jeltzaleak. Berria - Euskal Herria

Prokuraketaren egiteko frogatu behar da lana, osagarria, bakantzetan, eskoletan edo hala beharrez bozkalekutik faltatua izan beharra dela maiatzaren 29ko **erreferendum** egunean. Herria

Halaber, estatutu berrirako **erreferendum** deialdia egin ahal izatearen inguruan ere iritzia eskatu diete gipuzkoarrei. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Quebecen bi autodeterminazio **erreferendum** egin dituzte, eta bietako ezeinetan ere ez du lortu burujabetzaren aldeko apustuak aurrera egitea. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste erreferendum (6); **beste erreferendum bat** (3); **bi erreferendum** (3); **buruzko erreferendum** (3); **da erreferendum** (3); **edo erreferendum** (3); **erreferendum bat** (39); **erreferendum bat antolatu** (3); **erreferendum bat egin** (7); **erreferendum bat egingo** (3); **erreferendum bat egitea** (4); **erreferendum batean** (11); **erreferendum baten** (25); **erreferendum baten alde** (3); **erreferendum baten antolatzea** (4); **erreferendum baten bidez** (5); **erreferendum bidez** (26); **erreferendum eskaera** (3); **erreferendum hori** (5); **erreferendum horren** (3); **eta erreferendum** (5); **herritarrek erreferendum** (4); **herritarrek erreferendum bidez** (4); **nafarroan erreferendum** (3); **nafarroan erreferendum bat** (3); **zuten erreferendum** (5); **zuten erreferendum bidez** (3)

artean erreferenduma (5); **aurkako erreferenduma** (4); **aurkako erreferenduma egin** (3); **aurretik erreferenduma** (3); **autodeterminazio erreferenduma** (21); **autodeterminazio erreferenduma antolatzeko** (3); **autodeterminazio erreferenduma egin** (3); **autodeterminazio erreferenduma egingo** (3); **autodeterminazio**

erreferenduma egitea (4); **autodeterminazio erreferenduma egiteko** (5); **autodeterminazioari buruzko erreferenduma** (5); **azkenean erreferenduma** (3); **baina erreferenduma** (4); **buruzko erreferenduma** (51); **buruzko erreferenduma datorren** (3); **buruzko erreferenduma egin** (5); **buruzko erreferenduma egingo** (6); **buruzko erreferenduma egitea** (5); **buruzko erreferenduma egiteko** (3); **buruzko erreferenduma eskatzeko** (6); **chavezen kontrako erreferenduma** (3); **da erreferenduma** (10); **dago erreferenduma** (3); **dira erreferenduma** (5); **du erreferenduma** (8); **duen erreferenduma** (3); **dute erreferenduma** (4); **egin zuten erreferenduma** (3); **epean erreferenduma** (3); **erabakitzeko erreferenduma** (3); **ere erreferenduma** (3)

erreferenduma abuztuaren (3); **erreferenduma aintzat** (3); **erreferenduma aintzat hartuko** (3); **erreferenduma antola** (4); **erreferenduma antolatu** (5); **erreferenduma antolatzea** (13); **erreferenduma antolatzea eskatzeko** (3); **erreferenduma antolatzeko** (12); **erreferenduma atzeratu** (3); **erreferenduma datorren** (7); **erreferenduma deitu** (4); **erreferenduma dela** (4); **erreferenduma demokraziaren** (3); **erreferenduma egin** (65); **erreferenduma egin ahal** (16); **erreferenduma egin behar** (4); **erreferenduma egin beharko** (3); **erreferenduma egin eta** (3); **erreferenduma egin nahi** (4); **erreferenduma egin zen** (4); **erreferenduma egin zuten** (3); **erreferenduma egingo** (44); **erreferenduma egingo da** (5); **erreferenduma egingo du** (5); **erreferenduma egingo dute** (8); **erreferenduma egingo dutela** (4); **erreferenduma egingo litzateke** (4); **erreferenduma egingo zuten** (3); **erreferenduma egitea** (48); **erreferenduma egitea proposatu** (4); **erreferenduma egitea proposatzen** (3); **erreferenduma egitearen** (9); **erreferenduma egitearen alde** (3); **erreferenduma egiteari** (4); **erreferenduma egiteko** (43); **erreferenduma egiteko eskatu** (5); **erreferenduma egiten** (13); **erreferenduma egun** (3); **erreferenduma egun berean** (3); **erreferenduma eskatu** (4); **erreferenduma eskatzeko** (12); **erreferenduma espainia** (4); **erreferenduma espainia osoan** (4); **erreferenduma eta** (5); **erreferenduma ez** (5); **erreferenduma galdu** (3); **erreferenduma irabazi** (3); **erreferenduma izan** (4)

estatutuari buruzko erreferenduma (5); **eta erreferenduma** (25); **eta erreferenduma egingo** (3); **gainean erreferenduma** (3); **gaineko erreferenduma** (11); **gaineko erreferenduma egiteko** (3); **gasaren erreferenduma** (3); **igandeko erreferenduma** (4); **independentzia erreferenduma** (4); **independentziari buruzko erreferenduma** (5); **inguruan erreferenduma** (8); **inguruan erreferenduma egiten** (3); **inguruko erreferenduma** (19); **inguruko erreferenduma egingo** (5); **inguruko erreferenduma egitea** (3); **itunari buruzko erreferenduma** (3); **izateko erreferenduma** (4); **kargutik kentzeko erreferenduma** (5); **kentzeko erreferenduma** (7); **kentzeko erreferenduma antolatu** (3); **konstituzioaren erreferenduma** (3); **konstituzioari buruzko erreferenduma** (8); **kontrako erreferenduma** (10); **kontrako erreferenduma egin** (3); **kontrako erreferenduma egiteko** (3); **londresek erreferenduma** (3); **lukeen erreferenduma** (3); **onartzeko erreferenduma** (3); **planaren inguruko erreferenduma** (5); **presidentearen kontrako erreferenduma** (3); **sortzeari buruzko erreferenduma** (7); **zen erreferenduma** (4); **zuen erreferenduma** (6); **zuten erreferenduma** (4)

buruzko erreferendumaren (10); **den erreferendumaren** (3); **erreferendumak antolatzea** (3); **erreferendumak eta** (4); **erreferendumak ez** (3); **erreferendumak porrot** (3); **erreferendumaren alde** (9); **erreferendumaren aldeko** (12); **erreferendumaren antolatzea** (5); **erreferendumaren aukera** (3); **erreferendumaren aurka** (3); **erreferendumaren bidez** (3); **erreferendumaren emaitza** (15); **erreferendumaren emaitzak** (14); **erreferendumaren emaitzaren** (4); **erreferendumaren emaitzek** (5); **erreferendumaren emaitzen** (4); **erreferendumaren inguruan** (5); **erreferendumaren ondoren** (6); **erreferendumaren ostean** (5); **erreferendumari begira** (6); **erreferendumari buruz** (4); **estatutuaren erreferendumaren** (3); **eta erreferendumaren** (9); **inguruko erreferendumak** (4); **inguruko erreferendumaren** (3); **konstituzioari buruzko erreferendumaren** (3); **zen erreferendumaren** (3)

buruzko erreferendumean (21); **den erreferendumean** (11); **du erreferendumean** (4); **egin zen erreferendumean** (4); **egin zuten erreferendumean** (5); **egindako erreferendumean** (4); **egingo den erreferendumean** (6); **eginiko erreferendumean** (3); **erreferendumean baiezkoa** (6); **erreferendumean baiezkoaren** (4); **erreferendumean baiezkoaren aldeko** (3); **erreferendumean berretsi** (3); **erreferendumean bozkatu** (5); **erreferendumean europako** (3); **erreferendumean ezetz** (3); **erreferendumean ezezko** (8); **erreferendumean ezezko botoa** (8); **erreferendumean ezezkoa** (7); **erreferendumean herritarren** (3); **erreferendumean iruzurra** (3); **erreferendumean iruzurra egon** (3); **erreferendumean izandako** (6); **erreferendumean lortutako** (4); **erreferendumean onartu** (8); **erreferendumean onartu zuten** (3); **erreferendumean parte** (7); **erreferendumean parte hartu** (3); **erreferendumean zer** (3); **estatutua erreferendumean** (4); **europako konstituzioaren erreferendumean** (3); **herritarrek erreferendumean** (4); **iazko erreferendumean** (4)

bi erreferendumetan (3); **buruzko bi erreferendumetan** (3); **buruzko erreferendumera** (4); **buruzko erreferendumera deitu** (3); **buruzko erreferendumetan** (5); **du erreferendumera** (3); **erreferendumeko emaitza** (5); **erreferendumeko emaitza** (5); **erreferendumeko emaitzak** (6); **erreferendumeko emaitzak** (6); **erreferendumeko emaitzen** (3); **erreferendumeko emaitzen** (3); **erreferendumeko galderak** (3); **erreferendumeko galderak** (3); **erreferendumera deitu** (6); **erreferendumera deituko** (4); **erreferendumera deituko duela** (3); **erreferendumera deitzeko** (7); **erreferendumera deitzeko eskubidea** (3); **erreferendumerako misioa** (9); **erreferendumerako misioa beste** (4); **erreferendumik egin** (4); **erreferendumik ez** (3); **igandeko erreferendumeko** (5); **igandeko erreferendumeko** (5); **itunari buruzko erreferendumetan** (3); **mendebaldeko saharako erreferendumerako** (6); **mendebaldeko saharako erreferendumerako** (4); **saharako erreferendumerako** (7); **saharako erreferendumerako misioa** (5); **sahararako erreferendumerako** (4); **sahararako erreferendumerako misioa** (4)

erreferendoma bat (3); **erreferendoma gisako** (6); **erreferendoma gisako bozkatze** (6)

---

erreferente 1 *iz* erreferentzia terminoa.

Bi hitz lotzeko arrazoia hitzek ordezkatzen duten **erreferenteetan** egon daiteke. Eskema politiko hark bazuen bere **erreferente** edo ordezkoa egitura kultural, ideologiko, edo nahi baduzu, moral batean. Iñaki Arranz

Ez dugu irudirik, ez **erreferenterik**, ez eredurik; benetako eredurik esan nahi dut. Luis Elberdin

Donostiako Martxak, komunitatearen ordezkari izateko helburua duen **erreferente** orok bezala, era askotako kritikak eta irizpenak jaso ditu denboran zehar. Askoren artean

Gure **erreferente** guztiak maskulinoak dira, eta gure gustuak ere eredu maskulinoaren arabera eraiki dira. Ana Urkiza

Gaztetzen hasi ginenean, gure **erreferenteak** Bob Marley eta The Wailersak ziren, Neil Young, Leonard Cohen, Errobi, Potato... Pako Aristi

Gogojardunak liburua, izan ere, **erreferente** eta guzti iritsi da guganaino; hau da, gogojardunekin batera. Patxi Altuna

Proposizio batek **erreferenterik** duen ala ez esan ahal izateko, jakin beharra dago zeri dagokion enuntziatua, zein den bere korrelazio-eremua. Xabier Arregi

Logikariek diote "urrezko mendia Kalifornian dago" moduko proposizio bat ezin dela egiaztatu **erreferenterik** ez duelako. Xabier Arregi

Adierazlearen eta adierazitakoaren arteko harremana dela, izenaren eta berak izendatzen duenaren artekoa; esaldia eta bere zentzuaren arteko harremana; proposizioaren eta bere **erreferentearen** artekoa. Xabier Arregi

Edozer gauzak (edozein irudik, adibidez) irudika dezakeela edozein **erreferente**, hala erabakitzen baldin bada. Josu Zabaleta

Hurrengo astetik aurrera Nafarroa **erreferente** izango da dantza zaleentzat, ostiralean hasi eta apirilaren 9a bitartean Escena dantza jaialdia egingo baita bertan. Berria - Kultura

Jose Migel Barandiaran **erreferente** izan duen antropologo zorrotz bat galdu du Euskal Herriak. Berria - Kultura

Irlandako prozesua **erreferente** bat izan da orain arte; are gehiago orain, IRAk bere kabuz amaitzea erabaki duela-eta. Berria - Harian

Analogiaren mailaketa hori aise ikusaraz daiteke, **erreferente** berbera duten baina egoera sozio-historiko desberdinetan egin diren irudiak aurrez aurre jarriz. Josu Zabaleta

Bitartekaritza lanetan **erreferente** izan nahi du Norbolsak. Berria - Ekonomia

Erreferenteak ziren Kepa Ordoki edo Mario Salegi, Telesforo Monzon eta Txabi Etxebarrieta, Eustakio Mendizabal Txikia, Argala eta Txomin Iturbe... erreferentzialak zaizkigu eta haien arrastoari jarraituz iritsi gara gauden lekura. Jokin Urain

Izan ere, «elkarrizketaren eta elkar ulertzearen **erreferente**» bihurtu nahi du PSEk. Berria - Euskal Herria

Britainiarra taldeko **erreferente** bilakatu da, batez ere Satok beherakada izan duelako. Berria - Kirola

Eusko Jaurlaritzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako DBHko ikasleen euskara maila neurtu du, lehendabiziko aldiz, Europako hizkuntza azterketak **erreferente** hartuta. Berria - Harian

2 (izenondo gisa) erreferentziazkoa.

Hiru urtez sendagile **erreferentea** izan naiz. Berria - Harian

Hori beteta, garbi daukagu eskualdeko egunkari **erreferentea** bihur gaitezkeela. Berria - Euskal Herria

30 urte ingurutan gabiltzanontzat telebista da hedabide **erreferentea**. Berria - Kultura

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Tractatus-ean, hortaz, atomismo logiko osoan bezala, izenaren zentzua bere **erreferente** erreala da. Markos Zapiain

Hitzarmenerako Mahaiak Konponbiderako Mahaia eraikitzeari begira egindako proposamena joan den abenduan Euskalduna jauregian aurkeztutako zortzi printzipioak **erreferente** interesgarri izan daiteke lehenago edo geroago osatu beharko den alderdien mahaiari begira. Berria - Harian

«Gizartea ohartu da ezkerreko **erreferente** sendoa sortzen ari dela», esan zuen Sarasuak, eta «Euskal Herria bakera gerturatuko duen aukera politiko tinkoa dela ohartu da gizartea», gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Ordena joniarra, korintoarra eta doriarra [...], ordea, neurrien sistema globalak eta itxiak dira batez ere, eta ez forma hutsak, eta halako diren aldetik **erreferente** antropomorfiko bat aurkitzen dute beti: proportzio maskulino idealen itzulpen aritmetikoa da doriarra, "emakumearen lerdentasun eta xumetasunarena" joniarra, eta "neskato baten xumetasunarena" korintoarra. Santiago Iruretagoiena

Sarriegi da, dudarik gabe, Donostiako hiriaren irudikapenik biziena herri memorian sustatu duen musikagilea, eta era berean da memoria kolektiboan finkatuena dagoen **erreferente** emozional eta sentimenduzkoaren eraikitzailea. Askoren artean

Espainiako presidente ohi Jose Maria Aznar alderdiaren ohorezko presidente izendatu zuten «bere hitza bete duelako beti» eta alderdiaren **«erreferente** morala» izango delako. Berria - Mundua

Une honetan EAEko sozialisten **erreferente** politikoa Pasqual Maragall Generalitateko presidentea dela. Berria - Euskal Herria

Maiz aipatu dut nire **erreferente** musikalak The Clash eta Public Enemy direla, baina beste **erreferente** nagusia Toots&the Maytals da. Berria - Kultura

Esquerrak prozesu horretan lau urte irabazi ditu gutxienez, eta gaur Estatuko **erreferente** ezkertiar nagusia da PSOEren ondoren.Filmetako irudiak alderatzeko benetako **erreferenteak** falta ditugunez, eta behin eta berriz beti eredu bera azaltzen digutenez, azkenerako pentsatzen dugu gauzak benetan filmetan bezala direla. Berria - Mundua

Gerra osteko belaunaldiarentzat **erreferente** nagusi eta maisu izan zena, Jazinto Rivas, Elgeta, 1964an hil zen Donostiako Miserikordian, bakarrik, berak erakutsitako gazteak irratietako grabazioei esker ezagunak egiten ari ziren garai berean. Iñigo Aranbarri

3 (hitz elkartuetan)

Gizarte kohesioa eta gizarte kapitala indartzea, herri eta norbanakoen berezko kultur **erreferenteak** indartzea, horiexek dira gobernu arduratsu batek etorkizunera begira egin ditzakeen inbertsioak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

4 *izond* adierazten denari dagokiona.

Hitz onomatopeiko batean, ekintzaren materiala ere jaso egiten baitu kontaerak (hitzak, alegia: kunka!); hitz kontzeptual batek ordea, sortu ordukotz galdua dizu material **erreferente** guzia. Patziku Perurena

Batasun horrek, kohesio horrek benetan existitzen den mundu **erreferente** batera eraman izan gaitu. Iñigo Aranbarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erreferente bat (10); **erreferente bihurtu** (5); **erreferente bihurtuko** (3); **erreferente bilakatu** (3); **erreferente da** (4); **erreferente garrantzitsua** (3); **erreferente izan** (8); **erreferente kultural** (3); **erreferente nagusia** (3); **erreferente politiko** (4); **erreferente politikoa** (4); **erreferentea da** (5); **erreferentea izan** (6); **eta erreferente** (4)

---

erreferentzia *(orobat)* **1** *iz* erreferitzea; aipamena; eredua.

Gure proiektuaren helburu nagusia hau da: filosofia euskaraz egiten dugunon artean **erreferentziak** eta metodologia bateratzea. Askoren artean

Aipu guztien **erreferentzia** parentesi artean jarri dugu: norena den eta non jaso dugun. Iñaki Arranz

Parentesi zuzenen arteko **erreferentziak** liburuaren amaierako bibliografiari dagozkio. Koro Navarro

"Platonen ikaslea" eta "Alexandro Handiaren irakaslea" izenek **erreferentzia** bera dute, Aristoteles, baina desberdinki aurkezten digute **erreferentzia** hori; esanahi desberdina dute, zentzu desberdina dutelako. Askoren artean

Egoerari loturiko **erreferentziak** (lagun bertsolariak, entzuleak, saioa egiten ari den lekua eta eguna...). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

XX. mendean egin ditugun kontzentrazio zelai eta arma nuklearren esperientzien ondotik, ez dugula lehengo gure **erreferentzietan** gelditzerik. Piarres Xarriton

Konstante bakoitzari unibertsoko elementu finko bat egokitzen diogu eta bere **erreferentzia** edo denotazioa dela esango dugu. Askoren artean

Ez sartu aipurik **erreferentziarik** gabe. Askoren artean

Kataluniak berak ere ez digu balio **erreferentzia** gisa. Markos Zapiain

Erreferentziak emateko Harvard sistemak irakurleak behar duen gutxieneko informazioa eskaintzen du (egilea, liburua eta orria). Askoren artean

Ondo ulertu zuen Matilderen azalpena: non egin behar zuen eskumatara eta noiz ezkerretara, non zegoen San Nicolas eliza eta, eliza **erreferentzia** hartuta, non egin behar zuen kale batera eta noiz bestera. Unai Elorriaga

Ni sekula ez nintzen bakarrik geldituko neba hura nuelako, nire **erreferentzia** zen eta nire oinarrizko laguna. Karlos Zabala

Iaz, esaterako, 108 albiste argitaratu zituzten mundu zabalean **erreferentzia** diren atarietan (Alphagalileo, CORDIS Wire, Eurekalert!, Innovations-report, Madridd). Berria - Gaiak

Erreferentzia zarete eta mundu osoko jendea zuei begira dago. Berria - Mundua

«Gazte askok **erreferentzia** bat behar dute ondoan», dio. Berria - Euskal Herria

Pello Salaburu euskaltzainak Laphitzen euskara du goraipatu, ziolarik **"erreferentzia** behar lukeela izan euskaraz idatzi nahi duen ororentzat". Herria

Kalitatezko produktu batekin eta Donostian **erreferentzia** izateko asmoz. Berria - Harian

Hori biziki garrantzitsua da, irratiak baitira memento huntan Iparraldean euskararen **erreferentzia** bat, irakaskuntzarekin batera. Herria

Euskara behar bezala arautu gabe dagoen une honetan [...] ezinbestekoa da Euskaltzaindia bezalako erakunde bat izatea guztion **erreferentzia**. Pello Salaburu

Taldeak bazuen jada **erreferentzia** bat erasoan. Berria - Kirola

Tolosako partida du **erreferentzia**, baina hura galdu egin zuen, irabaztea merezi zuen arren. Berria - Kirola

Liburu horretan **erreferentzia** ugari jasotzen dira urkatzeko langintza ohoretsu eta errentagarriari buruz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orain arte Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak bere zazpi upel motaren prezioa zehazteko 22 eta 28 dolar arteko helburua jarri izan du; hala ere, orain **erreferentzia** 26 eta 34 dolar artekoa izatea nahi du. Berria - Ekonomia

Herriz herri egindako inkestak, jasotako ohituren **erreferentziak**. Berria - Kultura

Itsasoa ere basamortua da, biderik, **erreferentziarik** gabea. Bernardo Atxaga

Hona **erreferentzia**: www.gure-irratia.com. Herria

Optikaren aurrerakada **erreferentziatzat** harturik, datu holografikoak biltzeko sistema gisa aurkeztu izan da garuna. Irene Aldasoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

90eko hamarkadan **erreferentzia** garrantzitsua izan zen Italian eta Europan: birritan irabazi zuen UEFAko Kopa eta beste behin Errekopa. Ezin dizut, beraz, **erreferentzia** zehatzik eman. Euskal musikak beharrezkoak ditu **erreferentzia** berriak. Berria - Kirola

Erreferentzia ezagunena 1998ko Munduko Kopako partida da. Hain da bizkorra ekintzailearen jarduera, non bat-bateko egoera berri honek **erreferentzia** ezagunik gabe harrapatuko duen. Berria - Kirola

Esan dudan kezka edo planteamendu ideologiko horretan ere kontzeptu zentrala, irudi konkretu eta **erreferentzia** zentrala, Pasaia izango da. Koldo Izagirre

Aspaldi ez dela, zentral telefoniko batekin konparatzen zen garuna; geroago, konputagailua izan zen **erreferentzia** kontzeptuala. Irene Aldasoro

Oinarrizko **erreferentzia** bibliografiko gehienak. Askoren artean

Geroztik, Jonan Fernandez izan da Elkarri-ren **erreferentzia** publiko nagusia. Berria - Euskal Herria

Guretzako oso inportantea da LAB ezker abertzale osorako **erreferentzia** sindikala izatea. Berria - Ekonomia

Abenturako eta zientzia fikzioko narratiban, puntako **erreferentzia** ezinbestekoa dira Vernerren obra oparoa osatzen duten liburuak. Berria - Harian

Fitxaren buruak **erreferentzia** bibliografikoa identifikatzeko behar diren datu guztiak eduki behar ditu: egilea, izenburua, argitaratze-lekua, argitaletxea, edizioa, jatorrizko data eta zu erabiltzen ari zaren edizioaren data. Askoren artean

Kontatutako historiaren **erreferentzia** historikoak eta espazialak. Xabier Arregi

Salaberriak, berriz, altzariz hornitu du, «arkitekturari **erreferentzia** nabarmena eginez». Berria - Kultura

Erreferentzia konplexuak: iturri bat berez beste iturri batetik atera duzunean erabiltzen dira. Askoren artean

Horrelakoetarako nazioarteko **erreferentzia** den *Global Reporting Initiative*-ren parametroak jarraituz, [...]. Berria - Ekonomia

Bertsolaritza, Bertsozale Elkartearen inguruan horrela egituratuta, ezinbesteko **erreferentzia** da gaur egun euskal kulturaren unibertsoan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ikusmenezko munduaren dokumentu gisako zuzeneko **erreferentzia** bat bideratzen duten irudiak artearena ez den beste eremu batzuetan aurkitzen dira gehienbat gaur egun. Josu Zabaleta

Haurtzaroko **erreferentzia** nuen Rezolako tximinia, eta haurtzaroko **erreferentziak** maitatu egiten dira, nola edo hala. Joan Mari Irigoien

Bestetan, berriz (azken urteotako bertsogintzan, adibidez), partekatutako balio eta **erreferentziak** gutxiago izaten dira, entzuleria bera ere zabalagoa delako, besteak beste. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**erreferentzi** g.er.)

Egun horiek pasatuta deituidazu telefonoz Erzurumdik, eta nik **erreferentzia** -zenbaki bat emango dizut; zenbaki horrekin Irango kontsulatura joan. Beste edozein generok bezala, bere **erreferentzia** -esparrua itxuratzen du bat-bateko bertsolaritzak. Jon Arretxe

Erreferentzia mailan, Donostialdea ikusten dut biziena. Ana Urkiza

Euskaltzaindiak beti izan du itzal akademikoa eta errespetua euskaltzaleen artean eta euskaltzale gehienek hartu izan dute **erreferentzia** puntu gisa euskal araugintzan. Pello Salaburu

Naturak jainkoak suplantatzen ditu eta bera bihurtzen da **erreferentzia** gune. Xabier Amuriza

Gurutzetako Ospitalea **erreferentzia** unitatea da haurren minbizien kasuan. Berria - Harian

Erreferentzi marko orokor osoari dagokion aldaketa, egitura osoaren aldaketa. Patxi Altuna

Horren beste adibide bat, mugimendu "autokinesikoa" da; ilunpetan ageri den argitxo bat "berez mugituko" balitz bezala ikusiko baita, begiak mugitu ahala, inolako **erreferentzia** -punturik ez delako. Josu Zabaleta

Bagenuen abere kutsatu guztiak azkar akabatzea, txertatzeaz eztabaidatzea, **erreferentzia** zentroak eratzea eta albaitari zerbitzuak indartzea. Berria - Gaiak

Ikuspegi honetatik begiratuta, antza, analogia bigarren mailako fenomenoa da, eta ia-ia ez du bere **erreferentzia** mota berezirik ere. Josu Zabaleta

Mugimenduaren pertzepzioa erlazioen araberakoa da neurri batean, eta **erreferentzia** -marka finkoak izateak asko errazten du. Josu Zabaleta

Deia zenbakitxo bat izaten da eta horren **erreferentzia** orrialdearen beheko aldean agertuko zaizu. Askoren artean

Liburu baten mugak ez dira sekula garbiak eta modu zorrotz batean marraztuak [...] bere barne konfigurazioaz eta autonomia ematen dion formaren gainetik harrapatua dago beste liburu, testu eta esaerekiko **erreferentzia** -sistema batean: sare bateko korapilo bat da. Xabier Arregi

Esan nahi da **erreferentzia** -sare izugarri baten bildumako -liburutegiko- munduari esker lortzen dugula idazleok liburutegitik kanpoko munduari buruz dakiguntxoa zehaztea. Anjel Lertxundi

Bi **erreferentzia** sistemaren arteko mugimendu erlatiboa da kontuan hartu behar dena. Fernando Morillo

Kartesiarra zen **erreferentzia** -sistema, kartesiarrak koordenatuak. Jon Muñoz

OR erabili beharko duzu **erreferentzia** -multzoak gainjartzea nahi baduzu. Askoren artean

Horietan guztietan dago analogia, baina irudiaren bi denotatu bereizten baldin badira: denotatu konkretu bat, eredua dena, eta denotatu abstraktu bat, **erreferentzia** -prozesu osoarena dena. Josu Zabaleta

Irudikapenezko irudia [...] bere **erreferentzia** -asmoak definitzen du: errealitatea adierazten du, erakusten du. Josu Zabaleta

Asko dira, bestalde, lan horretan **erreferentzi** gisa kontsultatu ditugun maisuak. Patxi Ezkiaga

AS 03 07 B **erreferentzi** pean. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure elkarteak lehen urratsa egina du kalitate **erreferentzia** ofizial bat kausitzeko: AOC, IGP edo "label rouge" bezalako erreferentzia bat lortzea, hori behar beharrezkoa da. Herria

Gramatika, ortografia, aipuen aurkezpena eta erabilera, bibliografia **erreferentziak** eta tresneria kritikoa. Askoren artean

Han zituen ikastolak lehen urratsak egin osoki euskaraz eta erlisione **erreferentziarik** ez eginez. Herria

Sasi- **erreferentziak** emateko garaian maisu, memoria apokrifoak idatzi zituen. Bernardo Atxaga

5 *erreferentzia egin*

Testuinguruari **erreferentzia egin** zaio, eta barne ahotsak izan du lekurik. Berria - Harian

Zuzenean aipatu ez bazuen ere, ELAri **erreferentzia egin** zion Onaindik. Berria - Ekonomia

Diskurtsoan XX. mendeko historiari ere **erreferentzia egin** zion, Hitler, Clinton eta Gorbatxov bezalako buruzagiak aipatuta. Berria - Mundua

Kataluniako parlamentuko presidente Ernest Benachek Kataluniak eta EAEk abian jarritako Estatutu erreformei **erreferentzia eginez** , elkarrizketaren bidetik abiatutako «ekimen oro» babestuko duela iragarri zuen atzo Gasteizen. Berria - Euskal Herria

Hebraieraz "jiahaom" deitzen omen zaio diamanteari: zapalezina, menderatu ezin daitekeena, harri horrek duen gogortasunari **erreferentzia eginez** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Ondoren ikusiko dugunez, bada alabaina Jainkoari **erreferentziarik egin** gabe eskema horren antzekoa darabilen teoriarik. Askoren artean

Objektuok definitzea gauzen mamiari **erreferentzia egin** gabe. Xabier Arregi

Ia konduktismo-mota guztiek (konduktismo watsondarra, neokonduktibismoa, konduktismo erradikala, etab.) gogo-egoerei **erreferentzia egitea** gainditu nahi dute. Askoren artean

Debekuaren aukera aintzat hartzen duen artikuluari ere **erreferentzia egiten** dio. Berria - Harian

Ez zioten **erreferentzia egiten** ezeri.· Maimonek **erreferentzia** interesgarria **egiten** digu hemen poesiazko hizkera eta tankeraz. Berria - Kultura

Ez dio, aldiz, **erreferentzia** zehatzik **egiten** Gasteizko alkatearen jarduerari. Berria - Ekonomia

ETAri **erreferentzia** zuzenik **egin** gabe, Batasunakoek aitortu dute ere berduratu direla indarrak ezker abertzalearen barnean. Herria

Hori denok daukagu, Jekill doktorearen eta Hyde jaunaren artekoa bezalakoa, **erreferentzia** klasiko hau **egitea** zilegi bazait. Jon Alonso

Zelanok ezohiko **erreferentzia egiten** dio hemen bere buruari. Askoren artean

Alonsoren «utzikeriari eta zabarkeriari» ere **egiten** zaie **erreferentzia** . Berria - Ekonomia

Erreferentzia ugari **egin** izan ditu ibilbidean Robe Iniestak. Berria - Kultura

ETAren azken agiriari **erreferentzia** ere **egin** zion. Berria - Harian

6 *erreferentziako izlag* erreferentziazkoa.

Enpresa txiki eta ertainentzat **erreferentziako** aholkularia izatea helburu du 1989an sortutako burtsako erakundeak. Berria - Ekonomia

Sacyrrek salaketa guztiak ukatu eta finantza erakundeak **erreferentziako** akziodun bat behar duela azpimarratu zuen, «indarra eta egonkortasuna ekarriko duena, erabakiak askatasunez hartzeko». Berria - Ekonomia

7 *erreferentziazko izlag* erreferentzia gertatzen dena.

Ohioko gitarrista, **erreferentziazko** musikari bilakatu da post-boparen eta fusioaren arloetan. Berria - Kultura

Erreferentziazko neurketa bila ari ziren urte osoan, eta badirudi aurkitu dutela. Berria - Kirola

Osasunerako Mundu Erakundeak Weybridgen (Erresuma Batua) duen **erreferentziazko** laborategian aztertu behar dituzte laginak. Berria - Gaiak

Texasko upela 50 dolarren atarian geratu zen, eta 45 dolar baino garestiago saldu zen Europako **erreferentziazko** petrolioa, Brent upela. Berria - Ekonomia

Erreferentziazko prezioa akzioko 20 euro ingurukoa izango da. Berria - Ekonomia

Ez dugu esango Donostiako jai herrikoiekin hain lotua dagoen martxa horrek graziarik ez duenik, ezta **erreferentziazko** jaiei oso ondo egokitzen ez zaienik ere. Askoren artean

Gauzak dauden bezala, euskal hizkuntza **erreferentziazko** hizkuntzatzat hartzeko gogoa orokorra denez gero, ez litzateke horrelakorik gertatuko. Bernardo Atxaga

Viscontiren *Rocco e i suoi fratelli*beti izan da **erreferentziazko** filma niretzat. Berria - Kultura

Komeni da lehenengo irakurketak beti **erreferentziazko** testuak izatea (testu-liburuak, entziklopedietako sarrerak, eskuliburuetako (handbooks) sarrerak...). Askoren artean

Erreferentziazko liburuek abiapuntua eskaintzen duten arren, normalki ez dute idazlan bat osatzeko behar beste material eskaintzen. Askoren artean

Sinesgaitza badirudi ere, aspaldidanik ez dute maskaradarik paratu Zuberoako euskal kulturarentzat hain garrantzi handikoa izan den Pierre Bordazarre Etxahun-Iruri-ren eta oraindik ere **erreferentziazkoa** den hiztegiaren egile Pierre Lhanderen herrietan. Berria - Kultura

Lehen esanahi bat, naturala dei daitekeena, bera ere esanahi faktual soil batean (**erreferentziazkoa** : gizaki batek kapela esaten zaion jantzi bat jaso duela ulertzea) eta adierazpenezko esanahi batean (keinu hori zabalagoa ala laburragoa, bortitza ala ez, izan den egiaztatzea). Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetan erreferentzia (3); **artean erreferentzia** (4); **baina erreferentzia** (4); **baten erreferentzia** (8); **bati erreferentzia** (3); **benetako erreferentzia** (4); **benetako erreferentzia izan** (3); **bere erreferentzia** (12); **beste erreferentzia** (12); **beste erreferentzia batzuk** (3); **bi erreferentzia** (3); **bigarren erreferentzia** (4); **buruzko erreferentzia** (5); **da erreferentzia** (15); **da erreferentzia nagusia** (3); **den erreferentzia** (6); **denotazioa edo erreferentzia** (3); **die erreferentzia** (3); **dio erreferentzia** (5); **dira erreferentzia** (8); **du erreferentzia** (10); **duen erreferentzia** (6); **dugu erreferentzia** (6); **dute erreferentzia** (7); **edo erreferentzia** (4); **egin zion erreferentzia** (9); **eginiko erreferentzia** (3); **egiten die erreferentzia** (3); **egiten dio erreferentzia** (4); **erdiko erreferentzia** (3); **ere erreferentzia** (7); **erreferentzi gisa** (3); **erreferentzi pean** (4); **eta erreferentzi** (3)

erreferentzia asko (6); **erreferentzia bakarra** (10); **erreferentzia bat** (36); **erreferentzia bat izan** (3); **erreferentzia batzuk** (5); **erreferentzia bera** (4); **erreferentzia berriak** (3); **erreferentzia bibliografiko** (4); **erreferentzia bibliografikoa** (3); **erreferentzia bibliografikoak** (6); **erreferentzia bihurtu** (23); **erreferentzia bihurtu da** (9); **erreferentzia bihurtu dira** (4); **erreferentzia bihurtu nahi** (3); **erreferentzia bihurtu zen** (3); **erreferentzia bihurtzen** (3); **erreferentzia bilakatu** (3); **erreferentzia da** (20); **erreferentzia dela** (5); **erreferentzia den** (6); **erreferentzia dira** (7); **erreferentzia diren** (7); **erreferentzia duen** (3); **erreferentzia dute** (3); **erreferentzia edo** (4); **erreferentzia egin** (6); **erreferentzia egin zion** (3); **erreferentzia eginez** (33); **erreferentzia egitea** (4); **erreferentzia egiten** (12); **erreferentzia egiten dio** (4); **erreferentzia epea** (3); **erreferentzia ere** (3); **erreferentzia esparru** (4); **erreferentzia eta** (7); **erreferentzia ez** (4); **erreferentzia ezinbestekoa** (3); **erreferentzia galdu** (4); **erreferentzia galdu dute** (3); **erreferentzia garbia** (3); **erreferentzia garrantzitsu** (4); **erreferentzia garrantzitsua** (7); **erreferentzia garrantzitsua izan** (4); **erreferentzia garrantzitsuena** (3); **erreferentzia gisa** (31); **erreferentzia gisa erabiltzen** (5); **erreferentzia gune** (7); **erreferentzia gunea** (3); **erreferentzia guztiak** (7); **erreferentzia harturik** (4); **erreferentzia hartuta** (3); **erreferentzia hori** (6); **erreferentzia horiek** (12); **erreferentzia ia** (3); **erreferentzia izan** (29); **erreferentzia izan behar** (5); **erreferentzia izan da** (9); **erreferentzia izan nahi** (6); **erreferentzia izan zen** (4); **erreferentzia izango** (12); **erreferentzia izango da** (5); **erreferentzia izatea** (6); **erreferentzia izateko** (5); **erreferentzia kultural** (3); **erreferentzia literario** (3); **erreferentzia modura** (6); **erreferentzia nagusi** (15); **erreferentzia nagusi den** (9); **erreferentzia nagusia** (30); **erreferentzia nagusia den** (3); **erreferentzia nagusiak** (3); **erreferentzia nagusitzat** (6); **erreferentzia ona** (3); **erreferentzia osoa** (3); **erreferentzia osoak** (3); **erreferentzia politiko** (3); **erreferentzia prezioa** (3); **erreferentzia puntu** (11); **erreferentzia punturik** (3); **erreferentzia ugari** (7); **erreferentzia zen** (5); **erreferentzia zenbakia** (3); **erreferentzia zuzenik** (4); **erreferentzia zuzenik egin** (3)

eta erreferentzia (42); **eta erreferentzia bihurtu** (3); **eta erreferentzia izango** (3); **europan erreferentzia** (15); **europan erreferentzia nagusi** (6); **europan erreferentzia nagusitzat** (3); **euskal herrian erreferentzia** (3); **ezinbesteko erreferentzia** (14); **gazteen erreferentzia** (3); **gure erreferentzia** (7); **guztien erreferentzia** (4); **haren erreferentzia** (6); **herrian erreferentzia** (3); **hori erreferentzia** (4); **horretan erreferentzia** (3); **inguruko erreferentzia** (3); **lehen erreferentzia** (7); **literaturaren erreferentzia** (3); **mugarri eta erreferentzia** (3); **oso baten erreferentzia** (3); **oso erreferentzia** (3); **proposamenari erreferentzia** (4); **taldearen erreferentzia** (5); **taldearen erreferentzia nagusia** (3); **taldeko erreferentzia** (5); **zen erreferentzia** (3); **zentzua eta erreferentzia** (5); **zion erreferentzia** (11); **zuen erreferentzia** (3)

bestelako erreferentziarik (3); **buruzko erreferentziak** (5); **erreferentziak bilatzen** (3); **erreferentziak emateko** (3); **erreferentziak ere** (5); **erreferentziak eta** (9); **erreferentziaren arteko** (3); **erreferentziaren bat** (9); **erreferentziarik egin** (3); **erreferentziarik egiten** (3); **erreferentziarik ez** (6); **erreferentziarik gabe** (14); **erreferentziarik gabeko** (4); **erreferentziatzat hartu** (4); **erreferentziatzat hartzen** (8); **erreferentziazko testuak** (5); **erreferentzietako bat** (3); **eta erreferentziak** (13); **eta erreferentziaren** (4); **eta erreferentzien** (3); **horien erreferentziak** (3); **horren erreferentziak** (4); **inolako erreferentziarik** (4); **zentzuaren eta erreferentziaren** (3)

---

erreferentzial 1 *izond* erreferentziazkoa.

1970eko urteetan borrokari ekiten zioten gazte eta zaharrek bazituzten ideiak, utopiak, helburuak, baina pertsona **erreferentzialak** ere bazituzten. Jokin Urain

Espezialista batengana joateko, herritarrek sendagile **erreferentzialaren** agindua jaso beharko dute engoitik. Berria - Harian

Joxean Muñozek euskararentzat espazio sinboliko eta **erreferentzial** bat eraikitzea ezinbesteko dela baieztatu du. Berria - Kultura

Askatzeko hausnarketa berri horrek *Vasconia* liburuaren izenburua zeraman (1963), eta ez zen letra hutsean geratu, aitzitik, sortzen ari zen ETA erakundearen pentsamendu **erreferentziala** (beraz, nazionalismo berri baten ideologia) izan zen. Askoren artean

Adigai irudizkoak saihestu eta hizkuntza **erreferentzialean** idazten ahalegindu zaitez. Askoren artean

Hitzak denotazioa duela, ahalmen **erreferentziala** , (horma hitzak, idazten ari naizela lehiotik ikusten ari naizen horma jakin batera bidaltzen nau). Isabel Arrigain

Bitasun horretan, ordea, hizkuntzaren funtzio **erreferentziala** nekez baztertuko dugu, mezua ez baita mezu ezer transmititu ezean. Iñaki Arranz

Mundu **erreferentzial** berri bat, gaztelerazkoa edo euskarazkoa ez dena. Ana Urkiza

Zeren arabera burutu daiteke alderatze hori? Oinarri enpiriko **erreferentzialen** arabera? Askoren artean

Sinetsarazi nahi baitzait "sistema **erreferentzial"** jakin bat neureganatu behar dudala, edo hobeki, neuregan dudala, hizkuntza hori jakite hutsagatik. Iñaki Segurola

Euskaldunek topagune **erreferentzial** bat izatea, gutxiagotasun konplexua gainditzea, euskaldun berrientzako plataforma izatea, euskararen aldeko jarrera duten lagunak erakartzea eta euskaldunok gero eta sendoago gaudela gure bizi-planteamentuetan erakustea. Berria - Kultura

Erreferenteak ziren Kepa Ordoki edo Mario Salegi, Telesforo Monzon eta Txabi Etxebarrieta, Eustakio Mendizabal Txikia, Argala eta Txomin Iturbe... **erreferentzialak** zaizkigu eta haien arrastoari jarraituz iritsi gara gauden lekura. Jokin Urain

Udalbiltza guztiz tresna beharrezkoa da, baina Udalbiltza sendoa, **erreferentziala** , zabala, bazterketarik gabea, demokratikoa behar dugu. Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa)

Honek inplikatzen du definitu ahal dela bere objektuek obeditzen duten erregimen orokorra, sakabanaketa era bat, eurek zertaz hitz egiten duten banatzen duena erregularki, eta euren **erreferentzialen** sistema. Xabier Arregi

Enuntziatuaren **erreferentzialak** eratzen du lekua, baldintza, azaleratze-eremua, bereizte-instantzia banakoentzako edo objektuentzako, gauzen egoerentzako eta enuntziatuak berak jokoan jartzen dituen harremanentzako. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erreferentzial bat (3); **sendagile erreferentziala** (8); **sendagile erreferentzialaren** (3)

---

erreferentzialtasun *iz* erreferentziala denaren nolakotasuna.

Subjektu politikoa duen kolektiboa denez, **erreferentzialtasun** bat badu, eta kalearekiko komunikazioa oso garrantzitsua da. Berria - Euskal Herria

Askotan errazegi ematen zaie **erreferentzialtasun** hori, zaharrak direlako soilik. Jokin Urain

Ondorio okerra aterako genuke, ordea, **erreferentzialtasun** hori hizkuntzaren funtzio bakartzat hartuko bagenu. Iñaki Arranz

Gatazkaren konponbiderako prozesua aztertzerakoan **erreferentzialtasun** politikoaren arazoari lehentasuna emanez. Berria - Euskal Herria

Materialgintzan lortutako aitzindaritza, eta Inguma datu-basearen **erreferentzialtasuna** lortu izana azpimarratu zuten, besteak beste, balantzean. Berria - Euskal Herria

Erreferentzialtasuna hartzen ari dira jai egun inposatu hauek, helarazten den mezua ere oso argia baita. Berria - Harian

Sindikalgintzak Euskal Herrian izan duen bilakaerari buruz, LABen irakurketan sindikalgintza abertzalearen **erreferentzialtasuna** berresten da. Berria - Ekonomia

Juan Ortuostek, berriz, euskal zinemak **erreferentzialtasuna** galdu duela dio: [...]. Berria - Kultura

Errealitateko irudiak filmatu beharrean, fotogramaz fotograma kolore orbanak margotu zituen, eta artelan esperimental horri izena jartzeko orduan hitzen **erreferentzialtasunak** ezin zuen ase. Iñaki Arranz

---

erreferitu, erreferi(tu), erreferitzen du *ad* **1** aipatu.

Fregeren terminologian azalduz, Russellen iritziz izen propioak **erreferitu** egiten du soilik, ez du zentzurik. Askoren artean

Termino singular baten estentsioa berorrek denotatzen edo **erreferitzen** duen objektua da; predikatu baten estentsioa berorrengan biltzen diren objektuen multzoa da; perpaus baten estentsioa berorren egia-balioa da. Askoren artean

Horietan, egiaren kontzepzio semantikoaren alde egin zuen, hau da, egiazkotasuna semantikari dagokiola esan zuen, adierazpen linguistikoak **erreferitzen** dituzten objektuekin harremanetan ezartzen dituen eremuari, alegia. Askoren artean

2 zaio *ad*

Konkretuki *España invertebrada*-ri **erreferitzen** zaio. Joxe Azurmendi

Menéndez Pelayo, berak "ciencia novísima" deritzon honi, **erreferitzen** zaio in *Historia de las ideas estéticas en España*, 1882-1891, 322, hor aipatzen dira izendatuki Herbart, Steinthal, Lazarus eta euren aldizkaria *Zeitschrift für Völkerpsychologie und Sprachwissenschaft*. Joxe Azurmendi

Baina dena, funtsean, Antropologiatzat jo daiteke, aurreneko hiru itaunak laugarrenari **erreferitzen** zaizkio eta. Askoren artean

Banago, beren-beregi eta izendatuki **erreferitzen** zaion pasartean, "Costa-ren programa"ren kritikan, 1911, jada negatiboki egiten du: *Volksgeista*, dio, iraganeko kontzeptu bat da. Joxe Azurmendi

Espainolak nola ez duen gaztelania estriktoa izan behar, baizik herri (alde) ezberdinen espresio ezberdina (herri penintsularrei **erreferiturik** ja *En torno al casticismo*-n agertzen den ideia), eskualde hispanoamerikarrei zabaltzen zaie. Joxe Azurmendi

---

erreferondoma ik **erreferendum**.

---

errefin *izond* fin-fina.

Errefin , [...] Fin-fina, jaundotoreen modaren araberakoa. Xabier Olarra

---

errefinamendu *iz* fintasuna, dotoretasuna.

[Azukrea] estimazio eta balio handiko produktua baitzen orduan, goi mailako jendeak erruz eskatzen zuena, giza klase baten goitasunaren ikur ez ezik, gozotasunarena ere baitzen, ohituren nolabaiteko **errefinamendua** . Felipe Juaristi

Mendebaldeko erakunde tradizional baten **errefinamendu** modernoak Mendebaldeko munduaren Ekialdeko Europako marketan zertutako hondamena. Iñaki Mendiguren

Errefinamendu pixka bat ere badago bilaketa horretan. Xabier Mendiguren Elizegi

Alemaniarrek su eman zioten **errefinategiari** eta aita bizikletaz abiatu zen ahal zuen bezala. Joseba Urteaga

---

errefinategi *iz* errefinatzeko lekua.

Errefinategian kontramaisu izendatu zuten. Joseba Urteaga

Aitaren gaztaroarekin eta **errefinategietako** hiru erreleboekin eta Bailarako arratoien urteekin konparatuz, hura benetako zoriontasuna zen. Joseba Urteaga

Erregai hori Jasloko eta Jedliczko **errefinategira** bidaltzen dute gero, kamioietan. Berria - Gaiak

Standard petrolio- **errefinategian** hasi zen lanean, Sena ibaiaren estuarioan. Joseba Urteaga

---

errefinatu, errefina(tu), errefinatzen **1** du *ad* finago bihurtu.

Bertakoek aspaldidanik ikasia zuten metal haiek atera, **errefinatu** eta arte-lanetarako erabiltzeko antzea. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izenondo gisa)

Ikusleak zibilizazioarekin bat zetorren ikuskizun **errefinatu** eta aurreratuaren lekuko izan zitezen. Felipe Juaristi

Eta **errefinatuagoa** , ondorioz. Joan Mari Irigoien

---

erreflektante *izond* islatzen, ispilatzen duena.

Segurtasun falta salatzen dute langileek ere: gaixo psikiatrikoak poliziaren babesik gabe garraiatzen dituzte maiz, edota errepideetan janzten dituzten txalekoek gidarienak baino banda **erreflektante** gutxiago dituzte. Berria - Ekonomia

---

erreflektore *iz* erreflektatzen duen gailua.

Urdina, urdina banbalina artean, eta urdina oihalean ere, **erreflektorearekin** ... Horrelaxe! Josu Zabaleta

---

erreflexibo **1** *izond* gogoetazkoa.

Natura, nolabait esatearren, gizartearen osagai **erreflexibo** nagusienekotzat har dezakegu; hau da, gizarteak bere norabidea (k) hausnartzeko erabiltzen duen elementu diskurtsibo zentraltzat. Berria - Gaiak

Bere ikerketaren ondorio eta helburuen gaineko hausnarketa sakon eta **erreflexiboa** bultzatzen ez duen jarduera batek inertzia itsuaren arriskua elikatzen du, heldutako norabideari akritikoki jarraituz. Berria - Gaiak

Objektu-multzo batez argibidea eman dezake, eta objektu horientzat psikopatologia hitza errubrika **erreflexiboa** , bigarren mailakoa eta sailkapenezkoa da. Xabier Arregi

2 gramatikan, bihurkaria.

Paradoxa gailentzen da horrelako esaldi **erreflexiboetan** , egia eta gezurra adierazten baitute aldi berean: [...]. Iñaki Arranz

Esaldi **erreflexibo** hauek kopurua ez, nolakotasuna ukitzen dute: [...]. Iñaki Arranz

---

erreflexio *(orobat **erreflexione** g.er.)* **1** *iz* gogoeta; gogoeta egitea.

«Estatutu garaian jaiotako hainbat gazte borroka armatuan aritzeko prest» daudela azaldu, eta, ondoren, egoera horri buruzko **«erreflexio** politiko sakona» egiteko gonbitea egin zuela Otegik azaldu zuen fiskalak. Berria - Euskal Herria

Irudipenak kolokan jarriko zuen ordu arte egindako **erreflexio** guztien sendotasuna. Pedro Alberdi

Erreflexioan bakarrik dira nahi izatea eta egitea desberdin: errealitatean bat dira. Askoren artean

Ene pentsu eta **erreflexione** guztiak ezin izan zitezkeela sukai berriak baizen. Joan Mari Irigoien

2 islatzea, ispilatzea.

Badira irudi opakoak, argiaren **erreflexioz** , ispilatzez ikusteko eginak, uki daitezkeenak. Josu Zabaleta

Baina, beroa goraka abiatu orduko, hodeien sabaian islatu eta, **erreflexioz** , beheruntz dator berriro. Pello Zabala

Osabak printzipio haiek esplikatu nahi zizkidan, Descartesek urte batzuk lehenago adieraziak eta argiaren **erreflexionea** arautzen zutenak. Joan Mari Irigoien

---

erreflexionatu, erreflexiona(tu), erreflexionatzen du *ad* gogoeta egin.

Tuttiren arabera, jendeak jarrera ona du performance-aren aurrean: «Jendeari kuriositatea pizten zaio, iritzia ematen du, **erreflexionatzen** du. Berria - Kultura

---

erreflexione ik **erreflexio**.

---

erreflexu 1 *iz*

Gure ekintzak informazio ohi deritzen bulkada edo kinadekiko erantzunak izaten direla, hots, erantzun automatikoak, gehientsuenak gure nahimenari itzurtzen zaizkionak, **erreflexuak**, alegia. Joxe Austin Arrieta

Orduan Raimundo Silvak liburua jaka eta atorraren artean sartu zuen, liburua babesteko **erreflexua** izan zen. Jon Alonso

Ez du atea ixteko **erreflexurik** izan. Urtzi Urrutikoetxea

Berriro itzuli zitzaidan atzealdeko zangoen gainean jartzeko **erreflexu** hori. Joxan Elosegi

Erreflexu bat baino ez da, baina izugarri atsegina; plazera larruazaletik burmuineko gune neuralgikoraino doa. Luis Elberdin

Berpizten sumatu nituen neure baitan analistaren **erreflexuak**, inertzia luze batek zimelaraziak. Juan Garzia

Garai bateko **erreflexuak** berreskuratu orduko, etxekotua sentitu zen berehala leku hartan. Jon Muñoz

Sintoma horiekin batera, **erreflexuak** galtzen dira eta halako gogogabezia eta urruntasuna sortzen bizitzarekiko. Joan Mari Irigoien

Sekta berriak sortzen ari diren honetan, **erreflexu** gehien duen elizak edukiko du -gero eta gehiago- sinestun kopururik zabalena. Harkaitz Cano

Mundu guztian gerra eta suntsiketa nagusi ibili ziren sei urte haiek zibilizazioaren ezaugarritzat jotzen ditugun hainbat aztura atzerabidean jarri eta zenbait **erreflexu** moteldu zituzten. Juan Garzia

Ordurako ondo irabazitako ospea zuen: Katua deitzen zioten bere **erreflexuengatik**. Berria - Kirola

Mahaian jarrita zeuden gainerakoak biziki ikaratu ziren, eta Leirek sorbaldak ere altxatu zituen **erreflexuz**, berehala amari harriturik begiratzeko. Aitor Arana

Emakumeak harridura eta ikara artean erreakzionatu zuen, eta belaunak elkarren kontra estutu zituen **erreflexuz**. Unai Iturriaga

2 (izenondoekin)

Lozorroan bazegoen ere, espero zitekeen emakume gazte batek **erreflexu** bizi batekin erantzutea, baina hura ez zen loaldi arrunta. Ibon Uribarri

Erreflexu hutsa izan zen. Bernardo Atxaga

Nofuturek, hegalei jo eta ke eraginez, ihes egin zuen, eta **erreflexu** hutsez, tximiniako erlaitzean pausatu. Jon Muñoz

Ordutik badakit gizartetik aldendu eta egoera pre-humanoan luze bizi izandako gizasemeak **erreflexu** sozial guztiak galtzen dituela. Jon Alonso

Koadernoa itxi, eta denbora eman dut Freuden aipuaren inguruan, **erreflexu** inkontzienteak eragindako hutsen hausnarrean. Anjel Lertxundi

Ez, beharbada, maila kontziente batean, baina bai **erreflexu** baldintzatu gisa. Juan Garzia

Zentzu hura, amona Sinforosa aurrean zuenean bakarrik berreskuratzen zuen, **erreflexu** kondizionatu bat balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Bizkarrezur muinean dago **erreflexu** orgasmikoaren gunea. Luis Elberdin

Erreflexu orgasmikoaren erantzun motorra, baina, ez da genitaletan bakarrik gertatzen. Luis Elberdin

Erreflexu ikaragarri bizkor batez, mikroa hartu zuen gizonak, zorua ukitu baino askoz lehenago. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Frogatu zion, halaber, bat-bateko argi egite edo horiek, ez direla fikziozko ikertzaile azkarren ondarea soilik, ezta idazleen asmakizunak ere, eta bai noizbehinkako **erreflexu** egintza berantiarrak. Migel Angel Mintegi

Puntuka ari dela, inprobisazio ahalmena eta **erreflexu** bizkortasuna ditu bertsolariak ezinbesteko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Elokuentzian eta hitzetik-hortzerakotasunean trebatzen du, **erreflexu**-bizkortasunean eta ulertzeko eta zeure burua ulertarazteko gaitasunean. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Luzatze-**erreflexu** hori garrantzizkoa da gorputzaren oreka mantentzeko. Irene Aldasoro

Hurrupatze **erreflexuarekin** jaiotzen gara, baina edoskitzen ikasi beharra daukagu. Luis Elberdin

5 *izond*

Sorbaldak kizkurtu eta lepo-keinu berezia egiteko joera zuen, keinu **erreflexu** eta kontrolaezin bat. Harkaitz Cano

Hori ere prozesu **erreflexua** da, nahiko geldia gainera. Josu Zabaleta

Garunak egoera aztertzeko denbora izan baino lehen gertatzen den ekintza **erreflexu** baten adibide da eskua berotasunetik automatikoki erretiratzearena. Irene Aldasoro

Apartatu egin zen leihotik, mugimendu **erreflexu** batez. Harkaitz Cano

Mugimendu **erreflexuaren** azterketa (nerbio-sistemaren anatomo-fisiologia osatzeko hain garrantzitsua izango dena). Xabier Arregi

Erantzun **erreflexua** da, eta koitoa ezinezkoa da. Luis Elberdin

Mezulari azkar batzuek bizkarrezur muineko inguruetaraino bidaliko dute agindua, eta han, 3. orno lunbarraren parean, non orgasmoaren gune **erreflexua** dagoen, 90° jiratu eta baginako sarreran eta zakilaren behealdean dauden gihar batzuetara joango da. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da erreflexu (3); **ekintza erreflexu** (3); **erreflexu batez** (3); **erreflexu hori** (3); **erreflexu hutsez** (5); **erreflexu orgasmikoaren** (4); **erreflexua da** (3); **erreflexurik izan** (3); **eta erreflexu** (4); **mugimendu erreflexu** (5); **mugimendu erreflexu batez** (3)

---

errefluxu *iz* atzeranzko isuria.

Oso zabaldua dago gure artean **errefluxu** gastroesofagikoa edo bihotzerre kronikoa deitutako gaitza. Berria - Gaiak

Medikuen arabera, hamar herritarretik zazpik dute **errefluxu** gastroesofagiko kronikoa. Berria - Gaiak

Gatekeeper, **errefluxu** gastroesofagiko kronikoa kentzeko medikuntza teknika berria, aurkeztu zuten atzo Gipuzkoako Poliklinikan (Donostia). Berria - Gaiak

---

erreforma 1 *iz* eraberritzea, eskuarki eraberritze erlijiosoa edo eraberritze politiko ez-iraultzailea.

Iraultza ala **erreforma**, dilema klasikoa. Iñaki Heras

Erreforma izan edo bilakaera izan, orain arte Egonkortasun Ituna bereizi duten bi helburu makroekonomikoei eutsiko dietela azpimarratu zuen Almuniak: [...]. Berria - Ekonomia

Hala bada, izpiritu eta jeinu nazionalaren araberako filosofia liberal batek [...] **erreforma**, erregenerazioa eta bakea, dena ekarriko du. Joxe Azurmendi

Erakunde horiek -indarrezko posizioan jarri ditu 1980ko hamarraldiaren hasierako zorraren krisiak, aipaturiko eskualdeak inarrosi zituenak-, ahaleginik handienak egiten dituzte herrialde zordunetako politikaren eta erakunde ekonomikoen **erreformari** begira, eta merkatuko logikaren hedapena da **erreforma** horren helburu agerikoa. Koro Navarro

Guztia hasi zen... 1653an, elizako testu zaharren **erreformarekin**. Pablo Sastre

Neurri horrekin, 1997. urteko **erreformarekin** zabaldutako bidea itxiko da, azkenik. Berria - Ekonomia

Estatutu berriaren **erreformari** buruzko erreferenduma. Berria - Harian

Beste guziak baino lehen, erretreten **erreformak** parada eskaini behar du dauden ezberdintasunen ttikitzeko. Herria

Halaz, erretreten **erreforma** garaiko greben karietara bitxiki, herrestak grebalarien alde zeuden. Itxaro Borda

Frantziskoren oroitzapenak, egokitzapen eta erabiltze guztiak gorabehera, bizirik iraun du etengabe, **erreformek** markatua egon den frantziskotarren historian. Askoren artean

Erreformen bideari ekiteko eta demokrazia ezartzeko gero eta presio gehiago jasotzen ari da Riad. Berria - Harian

Erreformak egin beharko direla esan du George Bush AEBetako presidenteak espazio gaietarako sortutako batzordean. Berria - Gaiak

Ordudanik beste hiru **erreforma** egin dira. Berria - Ekonomia

Tsarismoak, 1860ko **erreformak** eginez Krimeako gerran sufritzen ari zen errusiar herriaren gainetik eztena kentzeko zuhurtzia izan zuenak, [...]. Iñaki Mendiguren

Status quoaren **erreforma** eragin du, kapitalismoa ingurumenaren lagun handiagoa egiteko. Berria - Gaiak

Postaren **erreforma** abian jarri du Parisek. Berria - Ekonomia

ENBA sindikatuak Europako Nekazaritza Politikaren **erreforma** gaitzetsi du. Berria - Ekonomia

Erreformak aurrera eginez gero, lander edo estatu federatuek (16 daude orotara) hezkuntza sistemaren ardura osoa hartuko dute. Berria - Mundua

Nekazaritza Politika Komunaren **erreformari** aurre egiteko konpromisoa berretsi zuen UAGAk. Berria - Ekonomia

Savonarolak Elizaren eta ohituren **erreformaren** aldeko lana egin zuen, eta heretikotzat jo ondoren, inkisizioak sutan erretzera zigortu zuen. Berria - Kultura

Unedicen **erreforman** atzera egin du Parisek. Berria - Ekonomia

Herriaren haserrea bere mesederako erabili nahi izan du CDUk Hartz VI legeen aurkako protesten uda luzean, baina gizarte **erreformen** erantzukizuna bere gain ere erori da. Berria - Mundua

Elizako beste ordena guztiak erreformatu egin dira lehenago edo geroago, baina Jesusen Lagundiak ez du inoiz **erreformarik** izan. Irene Aldasoro

"Erreforma", noski, etapa bat izan zen, hamahirugarren mendean hasi eta hamazazpigarrena arte burutu ez zen bilakaera-prozesu luze batean. Iñaki Mendiguren

Foru Hobekuntzaren **erreformarako** egindako zirriborroari alderdiek 147 zuzenketa aurkeztu dizkiote. Berria - Euskal Herria

Zientziaren Legea eta Unibertsitatearen **Erreformarako** Legea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Plangintzapeko ekonomiek (besteak beste, Txina, Kuba eta Vietnamek) **erreforma** handiak egin dituzte, bereziki nekazaritza arloan, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketarako merkataritza irizpideak ezarriz. Iñaki Heras

Aukera gehiago egiteko bideak, eta espezializatzeko hautu egokiagoak eskaintzea izan ziren, besteak beste, **erreforma** erraldoi haren helburu nagusiak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Komisario gisa egindako lehen prentsaurreko ofizialean, Almuniak **erreforma** sakonagoak egiteko eskatu zien Hamabostei. Berria - Ekonomia

Sua dariola jartzen du Temple kontu horrek, eta **erreforma** gizatiar baten aldeko suhar bihurtzen: elbarriekiko tratua aldatu nahi du, autistei ematen zaiena bereziki. Xabier Olarra

Orduko monarka ilustratuen **erreforma** ezagunak. Juan Martin Elexpuru

Ezkerreko alderdiek **erreforma** ekonomikoak geldiaraz ditzakete. Berria - Mundua

Erreforma sozial eta politikoen beharra ere ia denek aipatzen dute. exekutiboak **erreforma** federala gauzatzeko Legebiltzarrean (Bundestag) behar adina boto lortzen badu. Joxe Azurmendi

Nortasun kurdua bermatuko lukeen **erreforma** konstituzionala onartzea, kultura eta hizkuntza eskubidea errespetatzea. Berria - Mundua

Ez dugu Gernikako Estatutuaren **erreforma** itxia proposatzen. Berria - Euskal Herria

Epe luzerako erabakiei buruzko arreta -alegia, **erreforma** estrukturalei buruzkoa- **Erreforma** protestanteak Eliza Katoliko batuaren fronte etsaia hautsi zuen. Iñaki Heras

Bizitza monastikoaren klunitar **erreformak** eliz sistema osoaren hildebrandotar **erreforma** ekarri zuen aita santuaren gidaritzapean. Iñaki Mendiguren

Errotikako **erreformarik** gabe. Koro Navarro

Sektoreko **erreformak** (nekazaritzaren, energiaren, osasunaren eta abarren eremuetan), eta egiturazko **erreformak** sustatzera jo zuen, epe luzera hazkunde iraunkor baten oinarriak jartzeko helburuaz. Koro Navarro

Agerian utzitako arazo eta gabeziak konpontzeko, bigarren **erreforma** bat egin behar izan da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hamaikagarren **erreforma** abian. Berria - Harian

Bien bitartean, Espainiako hezkuntza ministro andereak martxan du eskolaren auskalogarren **erreforma**, ironia finez "kalitatearena" izendatu duena. Joxerra Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erreforma Legearen bozketaz. Anton Garikano

Frantziskok ez zuen inor aldatu nahi izan, ez zuen **erreforma**-proiekturik gogoan. Askoren artean

Memorial Gobernuz Kanpoko Erakundea 1988. urtean sortu zuten, perestroika edo 1986tik aurrera Mikhail Gorbatxovek SESBn gidatutako **erreforma** prozesuaren giroan. Berria - Gaiak

Abokatuek **erreforma** helegitea aurkeztu zuten, baina Juan del Olmok berretsi egin zuen erabakia. Berria - Euskal Herria

XIV. mendeko "Espiritualak" eta ondorengo **erreforma**-mugimenduak, Erregelarekiko leialtasunean oinarritzen zirenak, *Perfekzio Ispilua*-n inspiratu dira. Askoren artean

Hezkuntza sistemaren eta eskolen **erreforma** saioak porrot egin zuen, irakasleen nahiz ikasleen oposizioaren ondorioz. Berria - Mundua

Kargu hori uzteak **erreforma** plana bultzatzen lagunduko ziola esan zuen. Berria - Mundua

Ministro jeneral aukeratu eta berehala, Paristik bertatik, ekin zion Bonabenturak bere gobernu-lanari, **erreforma**-programa zabala aurkeztuz. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan **erreforma**, egiten baldin bada, Espainian egiten den bosgarrena izango da. Berria - Harian

Madrilen pozik ziren bosgarren lan **erreforma** sinatu behar zutela eta. Berria - Ekonomia

PANek aurreikusitako justizia **erreformak** martxan jarri eta epaile palestinarrak izendatzeko asmoa zuen ministroak. Berria - Mundua

1997an Legebiltzarra desegin zuen, estatu **erreformak** egiteko kaleetan izandako hainbat protesten ondoren. Berria - Mundua

Konstituzio **erreforma** gisa eginez gero, Kongresuaren bi herenen gehiengoa beharko da testua onartu ahal izateko; aitzitik, estatutu **erreforma** bezala bideratzekotan gehiengo absolutua beharko da. Berria - Harian

Aberatsenek aterako diote onura zerga **erreforma** berriari. Iñaki Heras

Prentsa, irratia eta telebistak ez zituzten begi onez ikusten presidenteak bultzatutako gizarte-**erreformak**. Txema Ramirez de la Piscina

Mahai gainean jarri baitzuen -oraingoan inolako emaitza positiborik gabe- Elizaren barne-**erreforma**. Santiago Iruretagoiena

5 *Erreforma* erreforma protestantea.

Erreformaren eta Kontrarreformaren eragina nabarmentzen hasi aurrekoa da, ordea, Ignazio Loiolakoaren berrikuntza. Patxi Altuna

Halaxe gertatu zen **Erreformarekin**; luteranismoa etorri baitzen protestantismoaren ordez. Koro Navarro

Lapurtarra izan arren, Etxeberriren bide bera urratua zuen: apezgoa eta Frantziako erregeren lurrak utzita, Nafarroakoaren zerbitzuko jarria zen, **Erreforma** euskaldunen artean hedatzeko bitarteko hoberena izanen zelakoan. Aingeru Epaltza

Erreformaren armadako burua Biarnon. Aingeru Epaltza

Bitartean, Nafarroako erresuman, **Erreformaren** misiolari gartsuak, azpilana utzirik, klarki eta goraki lotuak ziren Erromako "aita saindu" ustelarenganako haustura aldarrikatzera eta irudien adorazioaren eta bertze superstizioen kontra. Aingeru Epaltza

Frantzian, martirien odolarekin hozitu da **Erreformaren** berri ona. Aingeru Epaltza

Hango jende gehiena Erromako Satan handiaren ilunpeetatik atera eta zalu-zalu egiten ari zen **Erreformaren** argira. Aingeru Epaltza

1560ko Eguberrietan, Antonio Borboikoak ez zuen, bere emaztearekin batera, **Erreformarako** urratsa egin. Aingeru Epaltza

Azaltzekoa dut bururatzeko, tribu horren bi herenak **Erreformaren** mendean Joana erreginaren zerbitzari leialak izan zirela. Itxaro Borda

Erreforma garaian bizi izan zen, eta, buruzagi bihurtuta, nekazari-gudetan hartu zuen parte. Rafa Egiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abokatuek erreforma helegitea (4); **araudiaren erreforma** (8); **aurkeztutako erreforma** (8); **baina erreforma** (8); **bere erreforma** (5); **beste erreforma** (6); **bosgarren lan**

erreforma (4); **da erreforma** (11); **den erreforma** (9); **dira erreforma** (5); **diren erreforma** (4); **dituen erreforma** (7); **du erreforma** (9); **duen erreforma** (15); **dute erreforma** (4); **eaeko estatutuaren erreforma** (5); **egindako erreforma** (4)

erreforma abian (4); **erreforma agindua** (7); **erreforma aginduak** (4); **erreforma aginduaren** (4); **erreforma atzera** (4); **erreforma aurrera** (12); **erreforma aurrera ateratzeko** (4); **erreforma aurrera eramateko** (5); **erreforma bat** (19); **erreforma bat egin** (4); **erreforma batek** (4); **erreforma bertan** (5); **erreforma bertan behera** (5); **erreforma bultzatu** (6); **erreforma da** (4); **erreforma dela** (4); **erreforma demokratikoak** (9); **erreforma egin** (10); **erreforma egin nahi** (4); **erreforma egitea** (12); **erreforma egiteko** (9); **erreforma ekonomiko** (6); **erreforma ekonomikoa** (4); **erreforma ekonomikoak** (11); **erreforma ekonomikoek** (4); **erreforma ere** (5); **erreforma espainiako** (4); **erreforma eta** (15); **erreforma ez** (10); **erreforma eztabaidatzeko** (4); **erreforma fiskala** (8); **erreforma gehiago** (5); **erreforma gisa** (5); **erreforma guztien** (5); **erreforma hau** (4); **erreforma helegitea** (24); **erreforma helegitea aurkeztu** (8); **erreforma helegitea jarri** (4); **erreforma helegiteari** (5); **erreforma hori** (18); **erreforma horiek** (12); **erreforma horren** (6); **erreforma izan** (8); **erreforma konstituzional** (4); **erreforma konstituzionala** (5); **erreforma kritikatu** (4); **erreforma onartu** (14); **erreforma onartu zuen** (5); **erreforma onartuko** (5); **erreforma plana** (7); **erreforma politiko** (6); **erreforma politikoak** (7); **erreforma proposamena** (6); **erreforma proposatu** (5); **erreforma protestantea** (4); **erreforma prozesuan** (6); **erreforma prozesuaren** (4); **erreforma sakon** (4); **erreforma sakona** (9); **erreforma sakonak** (8); **erreforma sorta** (4); **erreforma sozial** (6); **erreforma sozial eta** (5); **erretreten erreforma** (5)

eskolen erreforma (4); **espainiako konstituzioaren erreforma** (5); **estatuaren erreforma** (6); **estatutu erreforma** (29); **estatutuaren erreforma** (93); **estatutuaren erreforma aurrera** (7); **estatutuen erreforma** (14); **eta erreforma** (29); **eta estatutuaren erreforma** (5); **ezarritako erreforma** (5); **ezkutuko erreforma** (4); **foru hobekuntzaren erreforma** (5); **gernikako estatutuaren erreforma** (16); **gizarte segurantzaren erreforma** (9); **gobernuaren erreforma** (5); **hainbat erreforma** (15); **hitzartutako erreforma** (4); **hobekuntzaren erreforma** (6); **itunaren erreforma** (6); **jarritako erreforma** (7); **kataluniako estatutuaren erreforma** (9); **kodearen erreforma** (9); **konstituzio erreforma** (4); **konstituzioaren erreforma** (23); **konstituzioaren ezkutuko erreforma** (4); **lan erreforma** (33); **lege erreforma** (17); **legearen erreforma** (11); **onartutako erreforma** (4); **segurantzaren erreforma** (9); **senatuaren erreforma** (14); **sistemaren erreforma** (5); **unedicen erreforma** (5); **zen erreforma** (6); **zigor kodearen erreforma** (7); **zuen erreforma** (11)

da erreformak (4); **dituen erreformak** (5); **du erreformak** (5); **egindako erreformak** (4); **egiturazko erreformak** (6); **erreformak aurrera** (8); **erreformak egin** (7); **erreformak egingo** (6); **erreformak egitea** (8); **erreformak egiteko** (21); **erreformak egiten** (6); **erreformak ere** (9); **erreformak eskatu** (4); **erreformak eta** (13); **erreformak ez** (16); **erreformak ez du** (5); **erreformak gauzatu** (4); **espainiako konstituzioaren erreformak** (4); **estatutu erreformak** (19); **estatutuaren erreformak** (10); **estatutuen erreformak** (17); **eta erreformak** (11); **eta estatutuen erreformak** (4); **konstituzioaren erreformak** (7); **lan erreformak** (14); **lege erreformak** (9)

erreformarako egindako (5); **erreformarako egindako zirriborroari** (4); **erreformarako proposamena** (9); **erreformarekin ez** (4); **erreformaren alde** (8); **erreformaren aldeko** (8); **erreformaren arteko** (6); **erreformaren aurka** (4); **erreformaren aurkako** (4); **erreformaren bidez** (4); **erreformaren eta** (6); **erreformaren gainean** (5); **erreformaren inguruan** (18); **erreformaren inguruko** (5); **erreformaren ondorioz** (10); **erreformaren ondotik** (4); **erreformari begira** (5); **erreformari buruz** (4); **erreformari buruzko** (14); **erreformari ekin** (7); **erreformarik ez** (4); **erreformatik at** (4); **erreformaz hitz** (5); **estatutu erreformarako** (5); **estatutu erreformaren** (13); **estatutu erreformari** (5); **estatutuaren erreformarako** (24); **estatutuaren erreformarako proposamena** (5); **estatutuaren erreformarekin** (4); **estatutuaren erreformaren** (27); **estatutuaren erreformaren arteko** (4); **estatutuaren erreformaren inguruan** (7); **estatutuaren erreformari** (13); **estatutuaren erreformari buruzko** (5); **estatutuaren erreformaz** (6); **eta erreformaren** (8); **foru hobekuntzaren erreformarako** (7); **gernikako estatutuaren erreformaren** (6); **hobekuntzaren erreformarako egindako** (4); **kataluniako estatutuaren erreformarako** (4); **konstituzioaren erreformaren** (5); **konstituzioaren erreformaz** (4); **lan erreformaren** (5)

dituen erreformen (6); **erreformei buruz** (4); **erreformekin aurrera** (4); **erreformen aurka** (8); **erreformen aurrean** (5); **erreformen kontra** (5); **estatutu erreformei** (5); **estatutu erreformen** (6); **estatutuen erreformen** (5)

---

erreformakari *adlag* erreforma dela eta.

Hemengo deputatu eta zenaturrek kalipurik batere ez dute erakutsi Parisen, dela deputatuen ganbaran dela zenatuan frantses konstituzioaren **erreformakari** lurralde hizkuntzen aldeko galdeetan ez baitute parte hartu. Herria

---

erreformatorio *iz* adin txikiko gaizkileak zentzatzeko etxea.

Erreformatorioak edo antzeko eskola bereziak zirela horretarako. Joseba Sarrionandia

Egun batez, ordea, Punen polizia batek atxilotu eta **erreformatorioan** sartu zuen. Gotzon Garate

Deklarazio horren bidez gure aitak baimena eman behar zidan bere zaintzapean bizitza librea egiteko, **erreformatorioan** beste batzuen zaintzapean egon beharrean. Pello Lizarralde

Erreformatoriotik atera eta gero, berriz atxilotu zuten eta, Auzitegi Berezian epaitu ondoren, kartzelara bidali, Civitavecchiara. Fernando Rey

---

erreformatu, erreforma(tu), erreformatzen **1** du *ad* erreforma egin.

Oinarrizko printzipioa hauxe da: erretretatuen kopurua emendatzen bada lanean ari direnena baino gehiago, sistema **erreformatu** behar da. Herria

Estatutua **erreformatu** gabe ere posible izan daiteke Ibarretxek eskatzen dituen eskumenak hartzea. Berria - Euskal Herria

Medearen liluraren antzeko gizon handizaleen elokuentziaz, Estatu zaharra **erreformatu** ordez, fakzioetan zatituta botatzen dutela sutara, zaharberritzeko asmotan. Esteban Antxustegi

Arazo fiskalak ere **erreformatu** zituen erregeak: zentsu berri guztiak kentzeko agindu zuen. Iñaki Iñurrieta

Hobe duzue oraingo egoera profitatzea, hoberena ez izan arren, eta ez, gerra baten bitartez, zuek hilik edo okituta egonik, beste gizon batzuei **erreformatutako** gauzen egoera pasatzea. Esteban Antxustegi

Elizako beste ordena guztiak **erreformatu** egin dira lehenago edo geroago, baina Jesusen Lagundiak ez du inoiz erreformarik izan. Irene Aldasoro

Helburu hau behar dugu izan, beraz: kontzientzia **erreformatu**, ez ordea dogma bidez, bere buruarentzat argi ez dagoen edo erlijio edo politika forman agertzen den kontzientziaren analisi batez baizik. Josu Zabaleta

Gizarte errealitatea aldatzen denean hori botere legegileak hartu behar du aintzat, «legeak **erreformatzea** haren eginbeharra delako, eta ez epaileena». Berria - Euskal Herria

Egungo testua **erreformatzeko**, izan ere, diputatuen bi herenen botoa beharrezkoa da. Berria - Harian

Bozak zenbatzeko modua **erreformatzeko** (13.000 zuzenketa jarri zizkion oposizioak) eta eskumenen deszentralizazioa bultzatzeko. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuak eta gizarte eragileek aurki hasiko dituzte lan merkatua **erreformatzeko** negoziazioak. Berria - Harian

Nazioarteko finantza erakundeak **erreformatzeko** proposamenak. Iñaki Heras

2 (era burutua izenondo gisa)

Irakaskuntzaren berrantolaketa **erreformatuko** hainbat ikasgai berriren artean (Psikologia, Ontologia, etab.) aurkitzen dugu "antropologia" hitza lehen aldiz. Askoren artean

Elorzaren arabera, ustezko herri galdeketa bat «autonomia estatutuaren barruan, autogobernu marko **erreformatuan** ager daiteke, klausula mota eta zuhurtzia guztiekin». Berria - Euskal Herria

3 erreforma luteranoa egin.

Enrike VIII.ak, Ingalaterrako Eliza **erreformatu** nahi zuelarik, desegin egin zituen monakoak, nazio alferra bera, eta beste batzuen alferkeriari eusten ziona. Iñaki Iñurrieta

Eliza **erreformatu** nahi zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

4 (era burutua izenondo eta izen gisa) luteranoa.

Eliza **erreformatuek** (protestanteak, alegia) katolikoak baino arreta gehiago eskaini izan diete betidanik idatzi sakratuei, eta Biblia goitik behera aztertu izan dute. J.M. Olaizola "Txiliku"

Cromwell puritanoa zen, kalbinismoaren jarraitzailea eta Ingalaterrako eliza **erreformatuaren** zabarkeria begi txarrez ikusten zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bozkario eguna izan zen hura Mauleko **erreformatuendako**, Zuberoako hiriburuan [...] ez baitzen anarteraino halako ospakizunik ikusi. Aingeru Epaltza

Etxeberri, Joanes (Jean de la Rive), Biarnoko Eliza **Erreformatuetako** euskal ministro higanota. Aingeru Epaltza

Mary erregina katolikozalea -Bloody Mary, Maria Odoltsua- igo zen errege-jarlekura, eta, bere aukera erlijiosoa defenditu nahian-edo, eliza **erreformatuaren** aurka ekin zion amorru biziz, etengabeko sarraski eta jazarpenetan, bost urte luzez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Terride gure artean agertzean, Agaramont ez zen izan Nabarrenkoxen aterpea bilatu zuten noble **erreformatuen** artean. Aingeru Epaltza

Ministroen aholkuei entzungor, uko egin zion buruko ile eta bizar urdin luzeak mozteari, **erreformatuen** artean ohikoa zen bezala. Aingeru Epaltza

Apezeriak eta zenbait jaunskilek **erreformatuen** kontra xaxatua zuten herriko jendaila. Aingeru Epaltza

Bozkario eguna izan zen hura Mauleko **erreformatuendako**, Zuberoako hiriburuan -idolo-adoratzaileen habia halakoa!- ez baitzen anarteraino halako ospakizunik ikusi. Aingeru Epaltza

· Gero eta ugariagoak ziren puritano zorrotz haiek, Ingalaterrako Elizaren burua gogo txarrez ikusten zutenak, Ingalaterrako Elizaren burutzat hartu nahi ez zutenak, eta esaten zutenak **erreformatuta** ere Eliza hura katoliko gorrotagarrien bide beretik zihoala gero eta gehiago, itxurakeria, apainkeria eta diruzaletasuna barne. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

araudia erreformatzea (3); **araudia erreformatzearen** (3); **eliza erreformatu** (3); **eliza erreformatuaren** (6); **erakundea erreformatzeko** (3); **erreformatu ahal** (3); **erreformatu behar** (5); **erreformatu eta** (4); **erreformatu nahi** (5); **erreformatzea proposatu** (3); **erreformatzearen alde** (6); **erreformatzearen alde agertu** (4); **erreformatzeko asmoa** (6); **erreformatzeko aukera** (3); **erreformatzeko eskatu** (4); **erreformatzeko modu** (3); **erreformatzeko proposamena** (8); **estatutua erreformatu** (3); **estatutua erreformatzea** (5); **estatutua erreformatzeko** (39); **estatutua erreformatzeko proposamena** (7); **estatutuak erreformatzea** (3); **gernikako estatutua erreformatzeko** (9); **ituna erreformatzeko** (3); **konstituzioa erreformatzeko** (3)

---

erreformatzaile *izond/iz* erreformatzen duena.

Solon bezalako legegile **erreformatzaileek** zuzenbidea jarriko dute polisaren ardatzean. Askoren artean

Mugimendu **erreformatzaileekin** parekotasun handiak dituen arren, guztiz ezberdina da Frantzisko puntu honetan. Askoren artean

Servetek gertutik ezagutu zituen **erreformatzaile** gailenak: Melantchon, Lutero, Zwinglio eta Calvino-rekin sutsuki eztabaidatu eta ez zuen inoiz arrazoiaz beste inposiziorik onartu nahi izan. Askoren artean

Jacques Lefèvre d'Etaples **erreformatzaile** ezaguna Parisko unibertsitateko irakaslea izan zela. Joan Mari Irigoien

Aukera **erreformatzailea** tokiz kanpo dago, eta euskal jendeak ezin du erradikalizatu besterik: egun, badaki independentzia borroka armatuaren bidez bakarrik eskuratuko duela. Berria - Harian

Kontra-**erreformatzaileen** eta ideologia aldetiko egokitzaile ankerren aurka borrokatzen lagun zaitzaket. Itxaro Borda

Ezaugarri honek bereizten du Frantzisko bere garaiko beste **erreformatzaileengandik**. Askoren artean

Erreformatzaile lana egin gogo zuten eta lehengo herriaren libratzaileen lekuan sortu ziren zernahi partidu berri. Herria

---

erreformatze *iz* erreforma egitea.

Erretreta moldeen **erreformatze** edo aldakuntza horien auzia segitzen du beti Frantzian. Herria

Hori guzia, erakusteko nola ez duten onartzen Silvio Berlusconi presidentaren politika ekonomikoa eta hunek egin proposamenduak, ala erretreten **erreformatzeaz** ala eskola, banko, posta eta administraritza guzikoak. Herria

Presidentaren **erreformatze** horrek badu bere arrakesta zeren nahi baititu sobietar sistemaren desbardintasun batzu xuxendu, denbora berean herriko pobreenak lagunduz. Herria

Zapaterok, beretik erakutsi du **erreformatze** horren xedea. Herria

Erran dute gobernu berritze bat gabe ez dela **erreformatze** onik egiten ahalko. Herria

Errusian Gorbatchev president ohia beti mintzo: oraiko Putin presidentaren eta hunen **erreformatze** sozial "txarren" kontra ditu bere erraitekoak. Herria

---

erreformazale **1** *izond/iz* erreformen zalea dena.

Binomio fantastiko horrexek mugiarazten gaitu gu: gure klasikoengandik jaso dugun tradizio **erreformazale** / kontrarreformazaletik, egungo literatura egin nahi dugu; euskara arkaiko hura egungo literatur euskara mamitzeko baliatu. Iñaki Iñurrieta

Etemad egunkari **erreformazaleak** zioenez, berriz, Khatami presidentea bera kargua uzteko prest agertu zen, Irango Majlis Legebiltzarrean protesta ekintza batean atzo jarraitu zuten 80 bat diputaturi helarazitako eskutiz batean. Berria - Mundua

Hedabide kontserbadoreek, aldiz, gogor salatu zuten **erreformazaleen** protesta. Berria - Mundua

Otsailaren 20an Iranen egitekoak diren Legebiltzarrerako bozetan lehiatzeko asmoa zuten hautagai **erreformazale** ugari baztertzea ebatzi zuen Konstituzioaren Zaindarien Kontseiluak. Berria - Mundua

Halere, 3.600 hautetsi **erreformazale** utzi zituen Konstituzioaren Zaindarien Kontseiluak bozetatik at. Berria - Mundua

Hainbat diputatu **erreformazale** Irango Ganberan eserialdia egiten ari dira egunotan, neurriarekin ezadostasuna adierazteko. Berria - Mundua

Alderdiaren erabakiaren berri eman zuen atzo fronteko buru Mohammad Reza Khatamik, Irango presidente **erreformazale** Mohammad Khatamiren anaia ere badenak. Berria - Mundua

Erresuma Batuaren kolonia ohi den Legebiltzarreko 30 eserlekuetatik 18 lortu dituzte **erreformazaleek**, bozen %58,6rekin. Berria - Mundua

Erreformazaleek irabazi zituzten Iranen egin ziren azken hauteskundeak. Berria - Mundua

Bozetan parte hartu ezingo dutenen artean egun diputatuak diren 82 **erreformazale** daude. Berria - Mundua

Abdula erregeak kargua hartu eta **erreformazaleen** itxaropena bilakatu da. Berria - Harian

Sukarnoputri, ordea, **erreformazale** askoren babesa galtzen joan da, batez ere, prezioen igoera, langabezia handia eta ustelkeria kasuak direla eta. Berria - Mundua

Sauden sendi zabalean dauden **erreformazale** urrien artean dago Abdula Ibn Abdelaziz (Riad, 1924). Berria - Harian

Horien artean denetik dago: hasi kritika bortitz eta iraultzaileenetik, eta **erreformazale** kutsu handiagoa darion kritikaraino. Iñaki Heras

Igandean 124 diputatuk kargua utzi ostean etorri da **erreformazale** talde nagusiaren erabakia. Berria - Mundua

2 erreforma protestantearen aldekoa.

Lehengo udaberrian donapaleutar **erreformazaleen** sarraskian parte hartu zuten herritarren zerrenda da. Aingeru Epaltza

-Euskal herrietako noble **erreformazaleek** galdatuta eta erregina Joanak manatuta ari omen dituk lanean. Aingeru Epaltza

Alabaina, oraingoan **erreformazaleak** ez zeuden gehiago azienden gisa akabatuak eta kalituak izateko prest. Aingeru Epaltza

Halako batek zioen Atturriren ertzetan guduketa latza izana zela papista traidoreen eta **erreformazale** fidelen artean... Aingeru Epaltza

Erreformazale suharra izanik ere, maiz aritzen zen kalapitan hiriko ministroekin. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erreformazaleen artean (4); **eta erreformazaleen** (6); **eta erreformazaleen artean** (4); **hautagai erreformazale** (5); **kontserbadoreen eta erreformazaleen** (3); **zuten hautagai erreformazale** (3)

---

erreformismo *iz* gizartean, politikan edo erlijio gaietan erreformen aldekoa den joera edo doktrina.

Legearen begirunetik hurbilago zebilen haren **erreformismoa**, Erasmorenganik baino, eta teologiatik eta artzain bideetatik zuzen legearen hurrantzea izan da haren merezimendu handiena. Piarres Xarriton

Europaren eraikuntza edo honen hedapena, eliteak, liberalismoaren arautzea, **erreformismoa**, internazionalismoa, eskuzabaltasuna bera ere. Berria - Harian

Erreformismoa gainditzen. Koldo Izagirre

Legearen begirunetik hurbilago zebilen haren **erreformismoa**, Erasmorenganik baino, eta teologiatik eta artzain bideetatik zuzen legearen hurrantzea izan da haren merezimendu handiena. Piarres Xarriton

Ahmadinejad **erreformismoaren**, emakumeen eta gutxiengoen bidea murriztekoa da. Berria - Harian

---

erreformista 1 *izond/iz* erreformismoarena, erreformismoari dagokiona.

Buru kontserbadoreen ekinbidea kritikatu du presidente **erreformistak**. Berria - Mundua

«Guk denok kanpoko arerioa behar dugu geure herrialdea kontrolatzeko», zioen Saeed Lailaz Irango analista politiko **erreformistak** herrialdeko Lehendakaritzarako bozak baino lehenago. Berria - Harian

Khatami presidentearen mugimendu **erreformista** hil da. Berria - Mundua

EAJren aukera **erreformista** mutur batean, eta ETA militarraren haustura estrategia bestean. Berria - Euskal Herria

Hor aurkituko da hil edo bizi Akbar Rafsandjani ayatollah **erreformistaren** kontra. Herria

Alderdi Sozialista **Erreformistaren** sortzaileetako bat izan zen. Fernando Rey

Espainiako botereen eta Euskal Herriko alderdi politiko **erreformisten** artean adostutako Espainiako Autonomien Estatua krisian dago. Berria - Euskal Herria

Hautagai-zerrenda **erreformistan** aurkeztuko nauk. Lopez de Arana

Irango presidente eta **erreformisten** buru Mohammad Khatamiren anaia Mohammad Reza Khatamik. Berria - Mundua

Presidenteak eta hau sostengatzen duten beste alderdi batzuek bozetan aurkeztea erabaki zutenez, **erreformisten** eremua banatuta, sakon banatuta geratu da. Berria - Mundua

Tira, ni... **erreformista** nauzu. Koldo Izagirre

Nik ere **erreformistarena** egin dut, dialektikaren gozamenagatik. Koldo Izagirre

Erreformista da, baina aurrez aurre egiten du topo askotan erlijiozale kontserbadoreen botere faktikoarekin. Jon Arretxe

Konstituzioaren Zaindarien Kontseiluak milaka **erreformistaren** hautagaitzak debekatu ondoren, Parte-hartzearen Fronte Islamikoak boikota egin du. Berria - Mundua

Horrelakoak dituk **erreformista** guztiak -esan nuen nire artean-. Fernando Rey

Kontserbadoreak, **erreformistak** eta **erreformista** berriak. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan)

Erreformista-talde hori erne dago, beti bezala -esan zuen Gusek puruaren punta basakeriaz ebakitzen zuen bitartean-. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi erreformista (3); **diputatu erreformista** (3); **diputatu erreformistak** (3); **diputatu erreformistek** (4); **erreformista berriak** (3); **erreformista guztiak** (3); **eta erreformisten** (4); **hautagai erreformista** (4); **hautagai erreformistari** (3)

---

errefortzatu, errefortza(tu), errefortzatzen du *ad* sendotu, indartu.

Soldaduen lana askozaz nekagarri eta arriskutsuago izango zenez, gelditukо liratekeelako, nolabait esan, hiria eta estuarioaren artean, zuhur izango zela hauek **errefortzatzea**, posizioak tinkoagotzeko beharrezkoa izango zen denboran zehar gutxienik. Jon Alonso

---

errefortzu *(orobat **errefuertzo** g.er.)* 1 *iz pl* errefortzatzeko gauzak edo pertsonak.

Tiro, eztabaida eta tirabira gogorren ondoren, **errefortzuak** iritsi zirenean, gazteak amore eman eta atxilotuta eraman zituzten. Jon Maia

Emilio Laurenten gizonek **errefortzuak** behar dituzte, baina ezin horiek lortu. Edorta Jimenez

Negua sarturik, Naiarako dukeak **errefortzuak** ekarri zituen Probintziatik eta Arabatik. Aingeru Epaltza

Hiriko ate guztien aurkako aldi bereko erasoa egingo zela, defentsa-lerroan puntu ahulen bat aurkitu eta bertatik hausteko esperantzarekin, edo, **errefortzuak** puntu ahul horretara erakarririk. Jon Alonso

Pauetik etorri beharreko **errefortzuez** oroitu ginen. Aingeru Epaltza

Agian laster iritsiko dira rohirrimdarrak **errefortzuekin**. Agustin Otsoa

-Bidegurutzera, nik uste -esan zuen Landakoetxek-, **errefortzuen** bila. Agustin Otsoa

Beste Aldetik letozkeen **errefortzu** eta horniduretarako bide zabala utzirik, ezar litekeen itsas blokeoa ez zen oztopo iraunkorra izango haientzat. Jon Alonso

Errefortzurik ezin eskatu, ez nuen apaiz--hostia-horrek mindutako Miren beste saltsa batean sartu nahi. Joxean Sagaztizabal

2 (izenondoekin)

Alderantziz, erotuta bezala, **errefortzu** berriak abiatzen ziren harresien kontra. Agustin Otsoa

Gero atzerarazi egin zituen eta, **errefortzu** berriekin sendotuz, Cirith Gorgorren inguruetan jarri zituen, jasotakoaren ordaina emateko une egokiaren zain. Agustin Otsoa

3 (singularrean)

Euskara ikasteko **errefortzurako** irakasle bat ere badaukate Cervantesen, eta A ereduko ikasgelak ere bitan banatzen dituzte: batean euskara gehiago dakitenak eta bestean euskara ikasten hasi berriak. Berria - Harian

---

errefraktario 1 *izond* gaiez mintzatuz, tenperatura altuetan bere hartan irauten duena.

Lehen legea hau da, kultur irrada integral bat, argi-irrada integral bat bezala, bere osagaien espektroan difraktatzen dela, gauzaki **errefraktario** batera sartzean. Iñaki Mendiguren

2 uzkur edo herabe agertzen dena.

Ez dezaket ahantz alabaina hemengo etxetiar, petxero eta buhameak oro 1789an Errepublikaren alde agertu zirela, apez **errefraktarioek**, etxeko jaun opulantek eta notableek haizea norabidez aldarazi artean. Itxaro Borda

---

errefraktatu, errefrakta, errefraktazen du *ad* izpiez edo uhinez mintzatuz, norabidez aldarazi.

Ikuspegi zabalago batetik begiratuta, errealitatea desmultiplikatuz **errefraktatzen** duen kristalaren metafora hori da, beharbada, denbora oro har irudian irudikatzeari aplika dakiokeen formularik iradokorrena: denbora **errefraktatua**, gelditua, desmultiplikatua, zatikatua, eta orainaldi batera bihurtua beti. Josu Zabaleta

---

errefrakzio *iz* errefraktatzea.

Eguzki esferaren azken puntua sartzearekin batera, atmosfera garbi-garbi badago, inolako kalima edo gandurik gabe, azken argi izpiaren **errefrakzioa** gertatzen da, ostadarrean bezala. Iñaki Iñurrieta

Gehien makurtzen ziren errainuak (**errefrakzio** handienekoak) more ikusten ziren; **errefrakzio** txikienekoak, gorri; espektroko gainerakoak, berriz, bien artean. Xabier Olarra

Gorputzeko begiez gorputzak ikusten ditugu, haiek igortzen dituzten izpiek begiztatzen duguna ukitzen dutelako; ezin ditugu, baina, izpiok **errefrakzioz** abiapuntura itzularazi, ispilu bidez izan ezik. Imanol Unzurrunzaga

Kornea, **errefrakzio**-ahalmenik handiena ematen duena, ez da guztiz esferikoa, baizik eta kurbatura handiagoa du erdialdean ertzetan baino; **errefrakzio**-indizea ere (edo **errefrakzio**-ahalmena) handiagoa da erdialdean. han nintzen, **errefrakzio** indize zehatzeko kristalak zituen leiho baten aurrean zutik. Irene Aldasoro

Urrunago ere joan gaitezke: n. mailako ekuazio bat edo **errefrakzio**-legearen formula algebraikoak enuntziatutzat jo daitezke. Xabier Arregi

---

errefrau *iz* esaera zaharra, atsotitza.

Luziari buruz esan ditzagun, bere egunaren inguruan lotu diren atsotitz, **errefrau** edo esaera zahar horietakoak, nik handik eta hemendik bildu ditudanak. Pello Zabala

Diogun geure aldetik, formulazio bereziki gogoangarriak direla **errefrauak** eta modismoak, eta formulazioen izaera gogoangarri horrek ziurtatzen duela oroimenaren lana. Hala dio **errefrau** zaharrak: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Oroit bestela, harako **errefrau** larriarekin: Apiril biribile, zerrie urdandeian goseak hile; zerrizaina zokoan, arto puske kolkoan. gure arbasoek asko ikasi bide zuten txori eta hegaztiekin: eskarmentuzko **errefrau** mordoxka topa genezake behinik behin. Pello Zabala

Hauxe idatzi zuen bere **errefrau** bildumaren hitzaurrean: [...]. Koldo Zuazo

Burlazkoak 6 olerki dira, **errefrauzkoa** 1, kritikazkoak 2, eta erlijiozkoak 4. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errefrau guztiak** (3)

---

errefreskagarri *iz* freskagarria.

Claus AEBetako **«errefreskagarri** ospetsu» batek sortu zuela pasa den mendeko 30eko hamarkadan. Berria - Euskal Herria

---

errefresko *iz*

Laster ezkondu egingo da, eta bere lagunek **"errefreskoa"** deitzen zena eskaintzen diote, normalean bazkaria izaten zena, gizonezkoek "despedida" iluntzean afalduz egingo zuten bitartean. Pako Aristi

---

errefuertzo ik **errefortzu**.

---

errefus *iz* errefusatzea. ik **errefusapen**.

Ez bainuen nahi ezkon-berriek eta bereziki herriko haien familiakoek gaizki har zezaten ene **errefusa**. Daniel Landart

Oraindik ez duzu ideia zureganatzeko astirik izan, hala, ustekabean, lehen erantzuna **errefusa** izatea oso normala da. Jon Alonso

Beharrik **errefusa** zuen altxatu! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

errefusaezin *izond* ezin errefusatuzkoa.

Hirugarren interpretazio horri (**errefusaezina** baiteritzot) ez dakit ausart naitekeen laugarren bat gaineratzera. Juan Garzia

---

errefusagaitz *izond* errefusatzen zaila dena, ia errefusaezina.

Heriotza, irizpide **errefusagaitz** hauen ondotik, forma aldaketa besterik ez da, izaera batetik besterako pasabide igarriezina, Pitagorasek metenpsikosia deitzen zuena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

errefusapen *iz* errefusatzea.

Mendelssohnek arimaren iraunkortasunaz egindako frogaren **errefusapena**. Ibon Uribarri

Interes partikularrak dira, beraz, haien sustengu nagusia eta ez beren audientziaren onespena edo **errefusapena**. Txema Ramirez de la Piscina

Errefusapen hori, beraz, Letratuaren argudioak entzun gabe erabaki zen. Berria - Euskal Herria

Errefusapen hau kontrajarritako iritziak gure arrazoimenaren bidezko ulergarritasunaren baldintza subjektiboarekin duen gatazkaren errepresentazio soila besterik ez da. Ibon Uribarri

Ezin da apagogikoki aurkakoaren **errefusapenaren** bitartez egiaren ezagutzarik lortu. Ibon Uribarri

Horrela, ez zaizue beharrezkoa izango halako itxura oinarrigabe bakoitzaren garapenaz eta **errefusapenaz** aritzea. Ibon Uribarri

Mendebalde moderno berantak historiaren filosofia teozentriko horretaz egindako **errefusapena** esplikatu eta desenkusatu egin daiteke. Iñaki Mendiguren

Sublimazioak sublimazio, munduaren **errefusapen** zahar nahiz berriak saiaturik ere, amodioaren malenkoniak joak ez du, haatik, bere gogoa jolasik labirintikoenetan ere ahazten. Juan Garzia

Eraso baten **errefusapen** arrakastatsuaren emaitza garailearen militarizazioa izan daiteke, emaitza negargarriekin azken batean. Iñaki Mendiguren

---

errefusatu, errefusa(tu), errefusatzen *(orobat **errefuxatu** g.er.)* **1** du *ad* ukatu, eza eman; ez onartu.

Emakumeak lehengoan bezalatsu **errefusatu** zuen. Patxi Zubizarreta

-Gizon gazte bat **errefusatu** dut zahar bat aukeratzeko. Patxi Zubizarreta

Hautagai asko etorri zaio ezkontza eskabidea egitera, baina denak ere **errefusatu** ditu. Patxi Zubizarreta

Zergatik **errefusatzen** ditugu hainbeste sofistak? Askoren artean

Eskuarekin **errefusatzen** zuen eskaintzen zioten janaria, goseak ez zegoela-eta. Pello Lizarralde

Gorputzaren sentimenek ere nolabait gorputzak juzgatzen dituzte, beraiengan ukitu leuna ongi hartuz eta kontrakoa **errefusatuz**. Imanol Unzurrunzaga

Konstituzio proiektua **errefusatzen** badute, bozak egingo dituzte, berdin-berdin, abenduaren 15ean. Berria - Harian

Enpresak UGTrekin akordio bat erdietsi zuen, baina grebalari gehienek ituna **errefusatu** zuten. Berria - Ekonomia

Kasu honetan, **errefusatzen** dutena ongia denez, **errefusatzeak** ondorioz errua dakar. Imanol Unzurrunzaga

Eskupeko diru zikinak onartzen zituztenak eta **errefusatzen** zituztenak. Jose Morales

Ahulegia zen **errefusatzeko**, ikaratuegi zegoen bere etorkizunaz proposamen hura ez onartzeko. Oskar Arana

Proposamena ez zen aise **errefusatzekoa**. Aingeru Epaltza

Kalterik egiten ez duten emozio horiek ez ditut sekula **errefusatu**. Monika Etxebarria

Langileen %87k **errefusatu** egin zuten eskaintza. Berria - Ekonomia

Horra zain daukadan asturua, baldin nire goresmenezko eskaintza **errefusatzen** baduzu. Jon Muñoz

"Hazkunde iraunkor" esapidea **errefusatu** egin behar da, kontraesankorra baita. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Moskuk Mendebaldeko Kristandadean zeuzkan auzokorik hurbilenen -poloniar eta lituaniarren- erasoei aurre egin eta **errefusatu** egin behar izan zituen. Iñaki Mendiguren

Akemenestar Inperioak egin zion erasoa **errefusatzeak** Gizarte Helenikoan izan zuen eragina da horren adibide klasikoa. Iñaki Mendiguren

Zoroek baino ez dute eskuzabaltasuna **errefusatzen**. Patxi Zubizarreta

Idealismo enpirikoa **errefusatzeko**, aski da kanpoko hautemapenak errealitate bat espazioan zuzenki frogatzea. Ibon Uribarri

Eszeptizismoa **errefusatzeko** asmoz makina bat alternatiba aurki dezakegu: fundazionismoaren aurrean, koherentismoa; internismoaren aurrean, esternismoa; baina baita pragmatismoa ere. Askoren artean

Esperientziaren eremuaz goiti gaudenez, seguru gaude esperientziak ez gaituela **errefusatuko**. Ibon Uribarri

Ongi dakit oso erraza dela nire autoritate eskaxa **errefusatzea**. Juan Garzia

Begien bistan zegoen leuntasunez **errefusatu** zuela. Patxi Zubizarreta

Harekikoak zakar egitea edo bortitz eta zaputz **errefusatzea** ere ez zuen nahi, seguruenik huraxe zelako auzuneko ezkongai onargarri bakarra. Patxi Zubizarreta

Lan egitea **errefusatzen** zuten, eta halere zerbait egin behar, jatekorik ez baitzuten ukaiten. Marzel Etxehandi

Felipe Bidart-i **errefusatua** izan zaiola, dretxoan zelarik, presondetigitik jalitzea baldintzapeko libertateaz baliatuz, Arrazoin faltsu eta gezurrezkoetan oinarrituz baldintzazko askatasuna **errefusatua** izan zaio. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Komunitate lehiakide bateko profeta **errefusatua** gonbidatu zuten Mekara haien artean eroso sentitu eta beraien buruzagi izaten saia zedin. Iñaki Mendiguren

Mendebalde **errefusatuak** bere burua eraldatu zuen, eta gero berriro azaldu zen Ekialdeko asiar jokalekuan, dohain nagusitzat bere teknologia aurkeztuz erlijioaren ordez. Iñaki Mendiguren

Plazer **errefusatura** gonbitatua izaten bezala sentitu nuen ene burua. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat errefusatu (6); **bat errefusatu zuen** (3); **erabat errefusatu** (3); **ere errefusatu** (5); **errefusatu ahal** (3); **errefusatu arren** (4); **errefusatu behar** (3); **errefusatu ditu** (6); **errefusatu dituzte** (3); **errefusatu du** (22); **errefusatu dute** (19); **errefusatu egin** (26); **errefusatu egin zuen** (7); **errefusatu egin zuten** (4); **errefusatu egingo** (6); **errefusatu egingo dituela** (3); **errefusatu egiten** (12); **errefusatu egiten dute** (3); **errefusatu egiten zuen** (3); **errefusatu eta** (15); **errefusatu izana** (3); **errefusatu zituen** (5); **errefusatu zuen** (32); **errefusatu zuen atzo** (5); **errefusatu zuten** (13); **errefusatua izan zaio** (3); **errfusatua izan** (8); **eskaera errefusatu** (5); **eskaintza errefusatu** (9); **eskaintza errefusatu du** (3); **eskaintza errefusatu dute** (3); **eta errefusatu** (10); **eta errefusatu egiten** (3); **helegitea errefusatu** (3); **irmoki errefusatu** (3); **ituna errefusatu** (4); **jarritako helegitea errefusatu** (3); **konstituzioa errefusatu** (3); **proposamena errefusatu** (11); **proposamena errefusatu dute** (4); **proposamena errefusatu zuen** (4)

---

errefusatzaile *izond/iz* adierazten dena errefusatzen duena.

Zentzugabekeria iruditzen zait borondate publikoaren adierazpide diren legeak, erailketaren **errefusatzaile** eta zigortzaile direnak, eurak berberak izatea haren egile, eta, hiritarrak erailketatik urruntzeko, eurek ageriko hilketa agintzea. Juan Martin Elexpuru

---

errefusatze *iz* ukatzea, eza ematea; ez onartzea.

Errefusatzea gaur goizean aurkeztuko dute idatziz, defentsako abokatu guztien izenean. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzak Alderdien Legearen aurka aurkeztutako helegitean, Jimenez de Pargaren **errefusatzea** aintzat agertzearen alde agertu zen. Berria - Euskal Herria

Atxilotuta egon den denboran jasandako torturaren ondorioz gertatutako Jose Arregi Izagirreren heriotzak gure gaitzespen eta **errefusatze** erabatekoa merezi du. Jokin Urain

Ez daude ados, baina Lezak ez du **errefusatzeaz** hitz egin nahi. Berria - Ekonomia

18/98 auziko defentsako abokatuek **errefusatzea** aurkeztu dute Javier Gomez Bermudez Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aurka, eta dagoeneko tramitazioan dago. Berria - Euskal Herria

Erabaki gabeko **errefusatze** eskaera bat, egiaztatu gabeko dokumentazioa, eta beste zenbait irregulartasun. Berria - Harian

Gero, berriz, zelulen azala hornitzen duten zein **errefusatze** -mekanismoen kargu dauden molekulen egitura determinatzen duten geneak aztertuz. Juan Garzia

Horren ondoren, auzitan jarri behar du bere burua; esperimentu, kritika, **errefusatzeen** proba pasatu; hots, eraikitzen duen mundu-irudikapenak duen amets partea mugatu. Juan Garzia

Fiskalak peritutzat proposatutako polizien eta guardia zibilen **errefusatzeari** buruzko erabaki irmoa. Berria - Harian

---

errefusiatu ik **errefuxiatu**.

---

errefutaezin *izond* ezin errefutatuzkoa.

Brown jauna froga **errefutaezinak** lortzera iritsi zela dastamenaren aldaketari buruz. Karlos Linazasoro

Hori baino froga aratzagorik eta **errefutaezinagorik**...! Joan Mari Irigoien

Frogatzen zutelarik, modu hartan, ezen Demokritoren teoria atomista egiazkoa bezain **errefutaezina** zela. Joan Mari Irigoien

Nire teoria -ezkorra, nahi bada, eta agian atzerakoi samarra ere bai, baina ez horregatik okerra edota enpirismorik gabea- sendotu egin zen, kasik **errefutaezin** bihurtzeraino. Karlos Linazasoro

Handik aurrera, argazkia Pantxikek esan zuenaren aldeko argudio **errefutaezintzat** harturik, hatzaz hura seinalatu eta halaxe esaten nion Leireri: [...]. Joan Mari Irigoien

Erabat arrazionala duk gainera, **errefutaezina**. Harkaitz Cano

---

errefutagaitz *izond* errefutatzen zaila, ia errefutaezina.

Beste agiri bat **errefutagaitza**, buruko gaixoen kopurua da. Joxe Azurmendi

---

errefutatu, errefuta(tu), errefutatzen du *ad* norbaiten baieztapen edo ideia baten balioa argudioen bidez errefusatu.

Eta hau ez dute **errefutatzen** ez ezeztatzen berbertatik ezagutzen diren gertakari nabariek, aitzitik euren eskutik eroaten eta pentsarazten digute bizidunak, diodanez, zer sentiezgarrietatik harakoak direla. Xabier Amuriza

Babiloniako Kaldearren doktrinak astrologoen zientzia **errefutatu** nahi duen moduan. Xabier Amuriza

Honela sentimenek ezin dute elkar **errefutatu**. Xabier Amuriza

errefutazio *iz* errefutatzea.

Arras ezaguna da, azkenik, Aristotelesen **errefutazioa** : [...]. Askoren artean

Hain da ziurra egiazko errealitateak uste faltsuari aurre egiten, irtenbide oro ixten eta aho biko **errefutazioz** okerra aitorrarazten diola. Xabier Amuriza

---

errefutxo *interj* harridura, haserrea eta kidekoak adierazteko hitza. ik**futxo**.

Futxo eta **errefutxo** ! Patxi Zubizarreta

---

errefuxatu ik **errefusatu**.

---

errefuxiatu *(orobat **errefusiatu** g.er.)* **1** da *ad* bere ideia politikoengatik beste herrialde batean babes hartu.

Sedan-en **errefuxiatu zen** , aitasantuzaletzat hartu zuten, eta hil egin nahi izan zuten. Juan Martin Elexpuru

Yamiten **errefuxiatu nintzen** 1949an. Berria - Harian

Kirgizistango iturrien arabera, 550 uzbekistandar **errefuxiatu** dira herrialde hartan. Berria - Harian

Badakit, ondo jakin ere, ezkutatuta edo **errefuxiatuta** dauden beste batzuei dagozkien gauzak biziki interesatzen zaizkigula eta egiaz solidarizatzen garela ezkutatuta daudenak alemaniarrek aurkitu eta deportatzen dituztenean. Josu Zabaleta

Frantziako estatuan **errefuxiatuta** zauden militante ilegala bazara. Rafa Egiguren

Egungo Iruñeko apezpikua ez baitzen oso ados Esparterorekin, Frantzian da une honetan, Pauen uste dut, duela bi urte **errefuxiatuta** . Koldo Izagirre

Jesus Javier Alonso Carvallesek 1936 eta 1940a artean Frantzia eta Belgikan **errefuxiaturiko** haur euskaldunen memoriaren azterketa proposatzen du, espainolez. Berria - Kultura

Bertan Tindufeko errefuxiatu batek kontatzen zuen kostaldeko herri batean jaio zela, Dahlan, baina gerrak **errefuxiatzera** behartu zuela. Berria - Harian

Gero, Urepelen gauez gau muga pasatuz, Oihartzunen **errefuxiatzeko** . Itxaro Borda

2 irud/hed

Hamahirugarren asaltora Cassius Clay erdidantzan irten zen berriro, eta kolpe ugari eman zuen, harik eta ostera ere soken kontra **errefuxiatu** behar izan zuen arte. Joseba Sarrionandia

Orain politika moralismoan **errefuxiatzen** da -ez moralean. Joxe Azurmendi

Ohikoa da batzuek drogan **errefuxiatzea** . Berria - Euskal Herria

Denboraren buruan bakartasunean bizi dena ez da gehiago gai harremanetan jartzeko beste norbaitekin, ez da gai, ez du gogorik ere, eta arrunt uzkur bilakatzen da [...] nahiago du bere munduan gelditu, bere mundu hetsian **errefuxiatu** , erretiratu, ohantzean bezala. Filipe Bidart

3 (du aditz gisa)

Garai batean hemen jende askok politika erlijio azpian **errefuxiatu** zuen. Joxe Azurmendi

4 (era burutu izenondo gisa)

Han sortu, garatu eta loratzen da natura **errefuxiatu** bat, bereiz bizi dena. Koldo Izagirre

5 (era burutua izen gisa) bere ideia politikoengatik beste herrialde batean babes hartu duen pertsona. ik**iheslari 2**.

Preso, **errefuxiatu** eta ekintzetan bizia galdu duten gudarien familien sufrimena. Itxaro Borda

Gero eta **errefuxiatu** gehiago zegoen Bilbon, eta ez bakarrik Gipuzkoakoak eta Arabakoak. Lutxo Egia

Beste **errefuxiatu** batekin zegoen, Txomin Iturbe, herri berekoa. Rafa Egiguren

Ateak zabalik zeuzkan, pasadizoko geltoki bat zen jende askorentzat, eta **errefuxiatu** ugarik jotzen zuen hara behin betiko lekuan egokitu arte. Rafa Egiguren

-Duela gutxi zeharkatu dut muga -erantzun diezu-; **errefuxiatu** politikoa naiz. Rafa Egiguren

Igandeetan Baionara hurbiltzen nintzen, itsasbazterrean bizi ziren **errefuxiatu** militanteenekin harremanetan jarraitzeko. Rafa Egiguren

Antzinako **errefuxiatu** bat. Eskarne Mujika

Erakundetik bota izan arren, Frantzian **errefuxiatu** gisa bizi zen nortasuna faltsutuz. Itxaro Borda

Errefuxiatu jendearen giroan entzundakoaren arabera, kartzela barrutik eraman omen zituzten antolaketa eta koordinazio-lan guztiak. Rafa Egiguren

Errefuxiatu kanpo bat ote? Oihal-estalkiak eta guzti, itxura hala du. Pablo Sastre

Errefuxiatu txartela badaukazu, baina hiru hilean behin zeharkatu behar izan duzu muga orain arte. Rafa Egiguren

6 ***errefuxiatu gune*** *(orobat **errefuxiatugune** g.er.)*

Errefuxiatu gunea Gazako eskualdea eta Egipto banatzen dituen mugan kokatuta dago. Berria - Mundua

Beste 200.000 herritarrek hiriaren kanpoaldean ezarri dituzten **errefuxiatu guneetan** babestu dira, erakundearen arabera. Berria - Mundua

Hiriaren kanpoaldean ezarri diren **errefuxiatu guneetan** dauden hainbat pertsonari itzultzeko eskubidea eman zitzaien atzo. Berria - Mundua

Errefuxiatu guneetara ailegatzeko segurtasun arazoak daudela adierazi zuen Munduko Elikagai Programak. Berria - Mundua

Israelgo Armadak, bien bitartean, herenegun abiatu erasoaldiari eutsi zion atzo Gazako Khan Junis **errefuxiatu gunean** . Berria - Mundua

Mohsan Daur 11 urteko haurra txoriak harrapatzen ari zen Jabalia **errefuxiatu guneko** beste umeekin batera, soldaduek buruan tiro egin ziotenean. Berria - Mundua

Uharteko iparraldean dagoen Aceh eskualdea izan zen, itsasikararen eraginez, eremu kaltetuena eta bertako **errefuxiatu guneetan** dauden herritarrek oinarrizko gauzen premian daude.Tindufeko **errefuxiatu guneetan** bizi diren saharararrei 200.000 euroko diru laguntza ematea erabaki zuen atzo Eusko Jaurlaritzak. Berria - Harian

Horretarako, dirudienez uniformerik gabe, palestinarrak balira bezala gorde eta egin zieten tiro soldaduek Ain Beit al Ma-ko **errefuxiatu gunean** . Iñigo Aranbarri

Zein da une honetan **errefuxiatu guneen** egoera? Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

al askar errefuxiatu (3); **al bureij errefuxiatu** (4); **askar errefuxiatu** (4); **balata errefuxiatu** (4); **balatako errefuxiatu** (4); **balatako errefuxiatu gunean** (4); **bat errefuxiatu** (6); **bertako errefuxiatu** (4); **beste errefuxiatu** (9); **bi errefuxiatu** (4); **bureij errefuxiatu** (5); **bureij errefuxiatu gunean** (3); **dagoen rafako errefuxiatu** (3); **dauden errefuxiatu** (4); **den errefuxiatu** (3); **den rafako errefuxiatu** (3); **diren errefuxiatu** (3); **edo errefuxiatu** (4); **ere errefuxiatu** (3)

errefuxiatu bat (8); **errefuxiatu batek** (3); **errefuxiatu batzuk** (4); **errefuxiatu behar** (3); **errefuxiatu behar izan** (3); **errefuxiatu bizigunean** (12); **errefuxiatu bizigunearen** (4); **errefuxiatu biziguneko** (3); **errefuxiatu bizigunetik** (3); **errefuxiatu edo** (3); **errefuxiatu eragin** (3); **errefuxiatu eta** (10); **errefuxiatu gisa** (10); **errefuxiatu gisa bizi** (3); **errefuxiatu gune** (8); **errefuxiatu gunea** (9); **errefuxiatu gunean** (63); **errefuxiatu gunean bizi** (6); **errefuxiatu gunean eta** (5); **errefuxiatu gunean sartu** (3); **errefuxiatu gunearen** (6); **errefuxiatu guneen** (4); **errefuxiatu guneetako** (3); **errefuxiatu guneetan** (19); **errefuxiatu guneetan bizi** (3); **errefuxiatu guneko** (13); **errefuxiatu gunera** (4); **errefuxiatu gunetik** (8); **errefuxiatu guztiak** (5); **errefuxiatu inguru** (5); **errefuxiatu kanpalekuan** (7); **errefuxiatu kanpalekuetan** (3); **errefuxiatu palestinar** (13); **errefuxiatu palestinar bizigunean** (4); **errefuxiatu palestinar daude** (3); **errefuxiatu palestinarrak** (8); **errefuxiatu palestinarrek** (6); **errefuxiatu palestinarren** (8); **errefuxiatu palestinarren itzulera** (3); **errefuxiatu politiko** (6); **errefuxiatu politikoa** (10); **errefuxiatu politikoa naiz** (4); **errefuxiatu politikoak** (3); **errefuxiatu politikoen** (5); **errefuxiatu saharararrak** (4); **errefuxiatu saharararrek** (3); **errefuxiatu saharararren** (4); **errefuxiatu talde** (3)

eta errefuxiatu (26); **eta errefuxiatu politikoak** (3); **gatumbako errefuxiatu** (3); **hainbat errefuxiatu** (3); **hiriko errefuxiatu** (3); **jabalia errefuxiatu** (3); **jabaliako errefuxiatu** (29); **jabaliako errefuxiatu gunea** (3); **jabaliako errefuxiatu gunean** (13); **jabaliako errefuxiatu kanpalekuan** (3); **janingo errefuxiatu** (3); **junis errefuxiatu** (6); **junis errefuxiatu gunean** (4); **juniseko errefuxiatu** (3); **junisko errefuxiatu** (5); **junisko errefuxiatu gunean** (3); **khan junis errefuxiatu** (6); **khan juniseko errefuxiatu** (3); **khan junisko errefuxiatu** (5); **mila errefuxiatu** (5); **milaka errefuxiatu** (3); **nbek errefuxiatu** (3); **preso eta errefuxiatu** (6); **rafako errefuxiatu** (31); **rafako errefuxiatu bizigunean** (4); **rafako errefuxiatu bizigunearen** (3); **rafako errefuxiatu biziguneko** (3); **rafako errefuxiatu bizigunetik** (3); **rafako errefuxiatu gunean** (4); **rafako errefuxiatu guneko** (5); **rafako errefuxiatu palestinar** (3); **tindufeko errefuxiatu** (9); **tindufeko errefuxiatu guneetan** (4); **tulkaremgo errefuxiatu** (3); **ziren errefuxiatu** (5)

batuen erakundeko errefuxiatuen (9); **batuen erakundeko errefuxiatuentzako** (4); **batuen errefuxiatuentzako** (6); **batuen errefuxiatuentzako komisariatu** (5); **bizi diren**

errefuxiatuen (3); **cear errefuxiatuei** (3); **cear errefuxiatuen** (4); **cear errefuxiatuen laguntzarako** (4); **diren errefuxiatuen** (3); **erakundeko errefuxiatuen** (9); **erakundeko errefuxiatuen laguntzarako** (7); **erakundeko errefuxiatuentzako** (4); **erakundeko errefuxiatuentzako goi** (3); **errefuxiatuak beren** (3); **errefuxiatuak eta** (5); **errefuxiatuak itzultzea** (4); **errefuxiatuak itzultzea eta** (3); **errefuxiatuak itzultzeko** (4); **errefuxiatuak itzultzeko eskubidea** (3); **errefuxiatuak laguntzeko** (8); **errefuxiatuei laguntza** (4); **errefuxiatuen alde** (3); **errefuxiatuen aldeko** (8); **errefuxiatuen artean** (7); **errefuxiatuen arteko** (3); **errefuxiatuen egoera** (8); **errefuxiatuen eskubideen** (3); **errefuxiatuen eta** (4); **errefuxiatuen itzulera** (12); **errefuxiatuen itzuleraren** (3); **errefuxiatuen laguntzarako** (15); **errefuxiatuen laguntzarako batzordeak** (4); **errefuxiatuen laguntzarako espainiako** (5); **errefuxiatuentzako goi** (6); **errefuxiatuentzako komisariatu** (6); **errefuxiatuentzako komisariatu nagusiak** (3); **errefuxiatuetarako goi** (3); **errefuxiatuta bizi** (3); **errefuxiatuta dauden** (4); **eta errefuxiatuak** (7); **eta errefuxiatuek** (3); **eta errefuxiatuen** (17); **eta errefuxiatuen aldeko** (3); **eta errefuxiatuen itzulera** (4); **euskal errefuxiatuak** (8); **euskal errefuxiatuen** (7); **nazio batuen errefuxiatuentzako** (6); **nbeko errefuxiatuak** (3); **nbeko errefuxiatuak laguntzeko** (3); **nberen errefuxiatuetarako** (3); **nberen errefuxiatuetarako goi** (3); **preso eta errefuxiatuen** (3)

---

errefuxiatugune ik **errefuxiatu 6**.

---

erregadio **1** *iz* ureztatzea; sail ureztatua.

Bero itogarri horretan erleak burrunban aritzen ziren, liztorrak **erregadioko** uretatik edatera joaten ziren, eta tximeletak lorerik lore ibiltzen ziren hegan. Josu Zabaleta

Erregadioan oinarrituriko ekonomia agropekuarioak, aginte zentralizatuaren menpeko lankidetza komunitarioaren koordinazioa eta sedentarizazioa ekarri baitzuen. Patziku Perurena

---

erregai *(orobat **erragai** g.er.)* **1** *iz* erreketaren bidez beroa sortzeko erabiltzen den gaia.

Erregaia : Ikatza eta fuel-olioa. Berria - Harian

Hemen gaindi ekarrarazten den kolza edo ekiloretik ateratzen den **erregaia** balia daiteke, mila kilometrotara petrolioaren xeka joan gabe. Herria

Erabiliko duten **erregaia** gas naturala izango dela azpimarratu du. Berria - Euskal Herria

Hidrogenoa **erregai** gisa erabiltzeko teknologian gehiago inbertitu nahi du. Berria - Mundua

Gorputzean ere, makina gehienetan bezala, oso desiragarria da pisua kentzea, **erregaia** aurreztu eta eraginkortasuna areagotzen baita hartara. Irene Aldasoro

Moralesek **erregaien** nazionalizazioa behin betiko dela adierazi zuen. Berria - Mundua

Hegazkinari **erregaia** berritu diote, eta prest gelditu da itzul-bidaiarako. Xabier Olarra

Bi orduz baino gehiago aireportuaren gainean itzulbiraka ibili zen, **erregai** guztia erre arte. Gotzon Garate

Gorputzak, beste edozein makinak bezala, bere **erregaia** erretzen du. Irene Aldasoro

Fusio erreakzioan erabiltzen den **erregaia** deuterioa da. Berria - Gaiak

Erregaia birziklatzeko findegirik ez jartzeko. Berria - Euskal Herria

Erregaiaren konbustiotik lortzen du gorputzak energia, batez ere. Irene Aldasoro

Erregaiaren garestitzea espekulazioaren ondorioa da, merkatuetan ez baitago petrolio eskasiarik. Berria - Ekonomia

Petrolioaren prezioak **erregaietan** duen eragina tarteko, British Airways hegazkin konpainiak tarifak garestituko dituela iragarri du. Berria - Harian

Herenegun Donibane Lohizuneko portuan 10.000 litro **erregai** isuri zituen 33 urteko pertsona atzo auziperatu zuten. Berria - Euskal Herria

Eraginkortasuna da (**erregaia** lan bihurtzeko behar den energia kimikoaren proportzioa, alegia) bi motor konparatzeko modu praktiko bat. Irene Aldasoro

8'30etan aireratu zen, sei ordurako **erregaiarekin** . Josu Zabaleta

Erregaitarako kamioi bat lehertu eta 30 bat auto kiskali dira Lizarran. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Giza motorra gai da **erregai** bakar batekin ibiltzeko, proteina besterik jan gabe. Irene Aldasoro

Korrika, salto edo beste edozein ariketa fisiko egitean, **erregai** (glukogeno) gehiago erabiltzen dugu eta baita **erregai** hori erretzeko oxigeno (aire) gehiago ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jendeak egiten digun harrera ona **erregaia** da guretzako. Berria - Euskal Herria

Gorrotoa sua bezalakoa da, esan zidan, gero eta gehiago erre, orduan eta **erregai** gehiago behar du. Anjel Lertxundi

Amaren sua euskaltasuna da, eta su horren **erregaia** , berriz, euskara. Joxerra Garzia

Arabiar konkistatzaile musulman primitiboen garaipenek **erregai** berria eman zieten kristau-"idolatriaren" arazoaren inguruan luzaroan su txikitan egondako eztabaidei. Iñaki Mendiguren

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Erregai erabilia eta beste hondakin batzuk tratatzeko lantokia jarri nahi du Ecofuel enpresak Amezaga herriaren parean. Irene Aldasoro

Hauxe gertatzen da, besteak beste, **erregai** fosilekin, petrolioarekin alegia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horrez gain, **erregai** biologikoen planaren laguntzeko prest agertu da. Berria - Euskal Herria

Izan ere, **erregai** berriztagarritzat hartzen da biodiesela. Berria - Gaiak

Garraio ohiturak aldatzeko eta **erregai** alternatiboen ikerketa eta garapena sustatzeko ahaleginak egingo dituzte. Berria - Ekonomia

Nabarmendu behar da energia nuklearra ez dela berriztagarria, eta **erregai** nuklearra ere, uranioa, agortu egingo dela. Berria - Euskal Herria

Adituen arabera, **erregai** solidoaren lekuan, **erregai** likido edo gaseosoak erabiliko balira, urtero 9.000 haur gutxiago hilko lirateke. Berria - Gaiak

Elikagai asko bi zentzutan dira **erregai** onak: kilo erdi bat gurinek kilo erdi bat TNTk baino hiru aldiz energia gehiago askatzen du. Irene Aldasoro

Erregai isurkariak bultzaturik 2,5 segundo besterik ez zen egon airean eta 56 metro kurritu zituen. Pello Salaburu

Erregai erabilia eta beste hondakin batzuk tratatzeko lantokia. Irene Aldasoro

Gobernuari eskatzen diote **erregai** profesional baten ardiestea arrantzalek bezala, zeren beren mozkinen prezioak ez baitira goiti joan aldiz gastuak emendatuz. Herria

Usain izugarria zegoen, ikatz, petrolio eta beste **erregai** ezin igarrizko batena. Koro Navarro

4 (izenondo gisa)

Hori guzia biziki ontsa da, baina petroliokiak hainbeste tatsatzen dituen estatuak ez ote dio araberako tatsa bat ezarri nahiko olio **erregaiari** ere? Herria

Beraz diesel motorrak berez ez dira gasolioarekin kurritzeko asmatuak, baizik eta olio **erregaiekin** . Herria

Europak biokarburanteei buruzko direktiba ateraia du 2003-an, landare **erregaien** erabilpena bultzatzen du. Herria

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hona azken hamarkadotan gertatu diren **erregai** isurketa larrienak, gehienak petroliontziek eragindakoak. Berria - Gaiak

Diotenez, **erregai** isuririk ez da gertatu, eta arriskua ez da handia. Berria - Gaiak

Itsasoan 20 bat kilometroko **erregai** arrastoa uzten ari zen kargaontzi bat. Gorputzaren **erregai** -sistemak errendimendu harrigarria erakusten du egiaz. Berria - Euskal Herria

Zortzi autok eta **erregai** kamioi batek elkar jo eta lagun bat zauritu zen atzo 12:40 inguruan A-8 autobidean. Berria - Euskal Herria

Gorputzak baditu sistemak **erregai** -tanke, karburagailu, ihes-hodi eta are konpresoretzat har daitezkeenak. Irene Aldasoro

Gure **erregai** depositua zulatu ordez, sabela estali ere berdin egin ziezaguketen. Josu Zabaleta

Erregai biltegiak garbitu berri zituen. Berria - Euskal Herria

Azukrea gasolina-tankean eta **erregai** -hodietan, dio. Oskar Arana

Gerran itzel sufritutako mutila, abiada batean ehun liberako **erregai** -upelak altxatzeko gai zena. Edorta Jimenez

Automobil batean, adibidez, **erregai**-kontsumoari loturik dago beti energia-ekoizpena. Irene Aldasoro

Shell **erregai** enpresak 470 milioi upel gutxiago du erreserbetan. Berria - Ekonomia

Erregai merkatuan orekarako bidea. Berria - Ekonomia

Zilindro askoko baina **erregai**-erregulagailu gabeko automobil-motor baten antzekoa da muskulua. Irene Aldasoro

Begiratu nionean **erregai**-neurgailuari, tankea zortziren bateraino beterik zela erakusten zuen. Oskar Arana

Bihotzaren diseinuak antz handiagoa du automobileko **erregai**-ponparen diseinuarekin. Irene Aldasoro

Iranez gain, Azerbaijan, Egipto eta Irak dira **erregai** hornitzaile posibletzat jotzen dituzten herrialdeak. Berria - Mundua

Estatu Batuetan **erregai** hornikuntzan arazoak egongo ote diren beldurra dago eta horretaz baliatu dira merkatuetako espekulatzaileak. Berria - Ekonomia

Badira, hala ere, **erregai**-hornia mantentzeko hiru modu: a) Muskulua uzkurtzeko energia askatu eta gero, ADP (adenosindifosfato) bihurtzen da ATPa. Irene Aldasoro

Erregai-piletan, erregaiak (hidrogenoak, esate barako) oxigenoarekin erreakzionatu eta elektrizitatea sortzen du zuzenean: Muskuluak, ingeniaritzaren ikuspegitik, **erregai**-pilen indarrez dabiltzan motor linealak dira. Irene Aldasoro

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Asian, non industri iraultza exotiko batek, Mendebaldeko ekonomi ekimen desegokiak bizkortua, sozialki artean suberatu gabeko komunitateen nahastura geografikoa eragin baitzuen bere ekonomi laberako giza **erregaia** biltzeko prozesuan. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako erregai (3); **baino erregai** (4); **beste erregai** (4); **bi erregai** (3); **da erregai** (4); **den erregai** (4); **dira erregai** (4); **diren erregai** (3); **ditu erregai** (3); **erregai bihurtzeko** (5); **erregai biltegiak** (4); **erregai erabilia** (4); **erregai erabilia eta** (3); **erregai eta** (4); **erregai fosilak** (8); **erregai fosilak erretzen** (3); **erregai fosilen** (3); **erregai garestiak** (3); **erregai gehiago** (6); **erregai gehien** (3); **erregai gisa** (4); **erregai gutxiago** (4); **erregai gutxirekin** (4); **erregai guztia** (3); **erregai horren** (3); **erregai isuri** (15); **erregai isuri zuen** (11); **erregai kontsumoa** (3); **erregai litro** (5); **erregai mota** (5); **erregai nuklearra** (11); **erregai nuklearra ekoizteko** (3); **erregai nuklearrak** (3); **erregai orbana** (3); **erregai pila** (5); **erregai pilak** (3); **erregai pilen** (4); **erregai sistemak** (3); **erregai tankea** (4); **erregai tankea isolatzeko** (4); **eta beste erregai** (4); **eta erregai** (25); **eta erregai gehiago** (3); **gorputzaren erregai** (3); **litro erregai** (9); **litro erregai isuri** (5); **tona erregai** (15); **tona erregai isuri** (10)

da erregaia (8); **da erregaiaren** (5); **den erregaia** (4); **dio erregaia** (3); **du erregaiaren** (3); **du erregaien** (5); **dute erregaia** (4); **dute erregaiaren** (3); **egin du erregaien** (3); **erregaia behar** (3); **erregaia behar dute** (3); **erregaia eta** (9); **erregaia isuri** (4); **erregaiak garraiatzen** (3); **erregaiak nazionalizatzeko** (7); **erregaiak nazionalizatzeko erabakiarekin** (3); **erregaiarekin busti** (4); **erregaiaren garestitzea** (6); **erregaiaren garestitzeak** (7); **erregaiaren prezio** (7); **erregaiaren prezioa** (18); **erregaiaren prezioak** (8); **erregaiaren salneurria** (3); **erregaien gaineko** (4); **erregaien garestitzeak** (7); **erregaien prezioa** (3); **erregaien prezioak** (6); **erregaien prezioen** (3); **erregaiez betetako** (3); **erregairik gabe** (6); **eta erregaia** (12); **eta erregaiak** (7); **eta erregaiaren** (3); **eta erregaien** (4); **garestitu da erregaia** (3)

---

erregailu **1** *iz ipar* errekuntza gertatzen den gailua.

Mahai gainean, **erregailua** zegoen, eta haragia egiten ari zen bertan; soju eta garagardo botila batzuk ere bazeuden. Juan Kruz Igerabide

Erregailu, frijigailu, hozkailu, garbigailu herdoilezin itzelak nagusi; ez jan onik, ez giro goxorik: bakardadea eta burrunba. Edorta Agirre

Ezkaratz ezin nanoago bat edarien hozkailu batez eta bi **erregailuko** gas-sukalde batez hornitua. Oskar Arana

Zerratxoarekin metal-zatitxo bat ebaki nuen (zailtasunik gabe zerratzen zen) eta Bunsen **erregailuaren** garrera ezarri nuen. Juan Garzia

Bazirudien baten batek gasezko **erregailua** piztu zuela. Anton Garikano

Sukaldeko telefonoa mostradorean zegoen, bazter batean, ogi **erregailuaren** atzean. Koro Navarro

2 erretzen duen gailua.

Bi **erregailu** bota dituzte Hazparneko jandarmeriaren ate leihoetan. Herria

Erregailuek 3 auto erre dituzte eta jandarmeriako leihoak funditu. Herria

Egunoroko zikinak BAB ko **erregailurat** eremaitea. Herria

3 erregaia.

Tresneriarentzat behar den **erregailua**. Herria

---

erregalatu, erregala(tu), erregalatzen du *ad* opari egin, oparitu.

Zortzi urte nituela, amona Sinforosak mapamundi bat **erregalatu** zidan. Joan Mari Irigoien

Menelaok, egokiera ederra zuela ikusiz, santutegian urrezko ontzi batzuk ostu eta Andronikori **erregalatu** zizkion. Elizen arteko biblia

Egun horretan zaldun pobre bati **erregalatu** zizkion beretzat egin berriak zituen jantzi dotore eta garestiak. Askoren artean

Lorea **erregalatzen** ez badio, ezingo da lasai egon ez gau eta ez egun. Xabier Mendiguren Elizegi

Habanoa **erregalatu** zidan gizonarekin ari bainintzen. Joan Mari Irigoien

Kostaldean bizi zenez, mundu guztiak hondartzarako jantziak **erregalatzen** zizkion. Joxerra Garzia

Zurezko kanoi tipi hura zen, aitak urte batzuk lehenago **erregalatua**. Joan Mari Irigoien

Panpina polit bat ekarri zuen, izeba Manolik urtemugan **erregalatu** ziona. Joan Mari Irigoien

Perlak **erregalatzeak** beti dakar suerte txarra. Xabier Mendiguren Elizegi

Atrebentzia hartu nuen gazteari galdetzeko ea akordatzen zen bere aitak **erregalatzeko** ohitura zuen tabakontzi horietaz. Matías Múgica

Emazteak erantzun zidan: -**Erregalatu** egin didate, lansariaz gainera. Nik, ordea, ez nion sinesten eta esan eta esan ari nintzaion jabeei itzultzeko. Elizen arteko biblia

Amak **erregalatutako** izara zuri-horituen gainean mantso-mantso zabaltzen ari zen putzu iluna imajinatu nuen. Iban Zaldua

2 irud/hed

ELAk eta LABek ere, sindikatuen bizkar, patronalari lau milioi euro «**erregalatzea**» egotzi zien eraikuntzan formazio ikasgela iraunkor bat sortzeko. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat erregalatu (9); **erregalatu nahi** (3); **erregalatu zidan** (6); **erregalatu zion** (3); **erregalatu zizkion** (3)

---

erregaldi ik **erregealdi**.

---

erregali *iz* **erregalu**.

---

erregaliz *iz* belar landarea, metro bat luze dena, sustrai egurkarak dituena; sustrai horietatik ateratzen den gaia eta gozokia *(Glycyrrhiza glabra)*.

Debekatutako sendabelarren artean daude, mihura, mandragora edo urriloa, basa erromeroa, heliotropoa, eta Estatu Batuetaik ekarritako **erregaliza**. Berria - Gaiak

Mutikoak litxarreria pila bat aipatu zion: **erregaliza**, melaza, gominolak, azukre hautsa. Karlos Zabala

Agure zahar hark bere esku parkinsonianoari eraginez agurtzen gintuen nahinondik, guk martxanteretan erositako txikleak, pepitak, **erregalizak** jaten genituen artean. Joseba Sarrionandia

Adelak belar-ura prestatu zigun, digestioa hobeto egiteko: **erregaliza**, anisa eta limoi-lorea. Juan Kruz Igerabide

Edozerk nahasten zion urdaila, baita **erregalizak** eta gaxiek ere. Koro Navarro

Sustrai asko ere baziren, usain onekoak gainera, **erregaliza**, hamamelisa, errosta, eta zintzurrean gozo sartzen ziren mahai-azkenekoen antzera, lerdea aterarazten zidaten hari azukredun luzeen bidez. Joxan Elosegi

Txokolatezko igelak, kalabaza-enpanadak, pertzeko pastelak, **erregalizezko** makilak [...]. Iñaki Mendiguren

Ordea, gozokia izateko, ez zen ahosabaian horren itsatsia geratzen, eta koipetsuegia zen, bestalde, **erregaliz**-zinta izateko. Joxan Elosegi

---

erregalo *iz* **erregalu**.

---

erregalotxo *iz* **erregalutxo**.

---

erregalu *(ETCn **117** agerraldi; orobat **erregalo** ETCn **107** agerraldi, eta **erregali** g.er.) iz* oparia.

Nire osaba Luisen **erregalua** zuan, aitari eta bioi eztei-egunean egina! Joan Mari Irigoien

"Erregalu bat daukat zuretzat" esan zion Romak Marcosi telefonoz. Unai Elorriaga

Bihotzez eskatu zion Kristoren zerbitzariari onar zitzala **erregaluak**, beraren salbamenaren alde kristau pobreei edo elizei banatzeko. Askoren artean

Egia da hark ere bazekiela Ama goxatzen, eta beti ekartzen ziola **erregaluren** bat edo beste kanpoan izaten zen aldiro. Xabier Etxabe

Morroiak nagusiaren hamar kamelu hartu zituen eta, haren ondasunetatik zernahi **erregalu** eramanik, Mesopotamia aldera abiatu zen, Nahor hirirantz. Jose Antonio Mujika

Ishmirren urtebetetzea datorrenez, Azmal-Guzmudek **erregaluren** bat egin beharko dio. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Erregalukoa** hartu besterik ez dut egin, mukizu hori! Harkaitz Cano

Karameluak zorro batetik ateratzen hasi, eta honela esan zidaan Maritxuk: "Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar... eta hamaika!, azken hau **erregalu** !". Joan Mari Irigoien

Lehengo garai gozoak eta orain elkarrekin dasta zitzaketen loriak aipatu zizkion, **erregalu** eta dohain ugari oparitu, hitz ederrez gozatu neskaren oroipen mingotsak, Eta, **erregaluari** beste **erregalu** bat eransten ziola, irri zabal bat egin zidaan. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izenondoekin)

Irratia edo erlojua izan dituk beti harentzat **erregalurik** onenak, eta Gabonetan beti jokatu izan dik loterian. Xabier Etxabe

Guztiz ohoragarritzat hartu zuen, **erregalu** baliotsuak eskaini zizkion eta berarekin gelditzeko behin eta berriz eskatu. Askoren artean

Zoragarria irizten ziola esan zidan berriz, sekula egin zioten **erregalurik** ederrena, eta harro zegoela hitz haiek inspiratu nizkiolako. Ramon Saizarbitoria

3 irud/hed

Utzi dezakeen **erregalurik** onena? Euri gozoa. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erregalu bat** (3)

---

erregalutxo *(orobat **erregalotxo**) iz adkor* erregalu xumea.

Baina, hitzetan galdu gabe, nola baita ene usantza eta ohitura, aita Bartolomek amari egin **erregalutxo** baten berri emanen dizut, idurika dezazun orain ere azaletik mamia. Joan Mari Irigoien

Maitasun santu hau, inoiz espirituzkoa deitua, otoitzaren fruituarekin da zoriontsu; karitateak gutxitzat jotzen ditu lurreko **erregalutxoak**. Askoren artean

---

erregariatu, erregaria, erregariatzen du *ad* ureztatu.

Zer: jeranioak **erregariatzera**? Berria - Kultura

---

erregarri **1** *izond* erretzen duena.

Azido klorhidrikoa indargabetzeko soda **erregarria** eta ura erabili zituzten eta laino kaltegarri bat sortu zuen horrek enpresa barrualdean. Berria - Euskal Herria

Mezak bukatu berria behar zuen, ostatu bakarreko atarian hainbat gizon ikusi bainuen baso bana eskuetan zutela, egun **erregarria** izatekoari arnasgarri gelditzen zitzaizkion azken minutuez gozatzen. Aingeru Epaltza

Paduatik pasatu beharra dago freskoon urdina zein bero **erregarria** den ikusteko. Anjel Lertxundi

Zubitik gora Olibet galleta fabrikarantz Rosamari, eta bata gris hura arren, gona arren, azpikoa arren, giharraren higidura hartu du begian, eskugainean, eta handik gorputz osoaren zakura, hotzikara **erregarria**. Koldo Izagirre

Egun haren oroitzapenak malko **erregarriak** ekarri zizkigun begietara. Koldo Izagirre

Ez al da sukar **erregarri** baten menpe bizi nahi izatea, deuseztatzen eta irensten gaituen sukarra, soilik gozamen metafisikoen zoriona uzten diguna, eromenaren ondorioen oso antzekoa? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ilargi gabeko gau bat zen, aire gabea, **erregarria**. Josu Zabaleta

Sabel barne barnean sakatuak nituela gutizia normal guziak eta eltzearen estalki **erregarriaren** gainean lasai nenbilela. Piarres Aintziart

Haizean galdera **erregarri** hura ez zegoen itzalirik: Gazteok zergatik hartu zuten hiltzeko erabakia? Gotzon Garate

Ez dut, hala ere, ikusi nire baitan ilea zuritzen omen duen larritasun **erregarri** hori. Josu Zabaleta

Egia osoa, egia mina, ez da bakarrik jateko moduko platera; ez da nork bere buruari gordinki esatekoa ere, zeren pertsona bakarraren barrunbean oihartzun edo durundio gaiztoa egiten baitu, eta asko eta izugarri baita anplifikatzen, jasangaitz, **erregarri** eta norbere buruaren torturatzaile bihurtzerainokoan. Iñaki Segurola

Esaldiak, eta oroitzapen eta ideiak, barra-barra darion iturria bezala, distira **erregarriko** zurigune haren gainera, itsuski nekagarria, berak berdez eta urdinez modelatu bitartean. Anton Garikano

Erregarriagoa zaio orain Rosamariren izterraren igurtzia ibilian, haren giharra bere hezurren kontra. Koldo Izagirre

Koadernoa zabaltzerakoan, non ikusten dudan kontrazalean, suzkoa balitz baino **erregarriago**, auskalo noiz bertan itsatsi nuen pegatina! Anjel Lertxundi

2 (-en atzizkiaren eskuinean)

Liburuak nituen ordu luzeen entretenigarri eta betazalen **erregarri**, baina nire egoeraren tamala luzatzen eta luzatzen ari zen, eta gero eta eramangaitzagoa zitzaidan egoera hura, amaierarik ikusten ez niolako. Anjel Lertxundi

3 *iz* erregaia.

-Nik bonbila zahar baten kristala apurtuta xehe-xehe egin nian, gero hari lapitzaren hautsa nahasita oso **erregarri** ona izaten duk. Koldo Izagirre

erregate **1** *iz* futbolean, izkin egitea.

Abiadura, **erregateak** eta arriskua etorri ziren bere eskuin hegaletik. Berria - Kirola

2 irud/hed

Jarrera dela eta, Maribeli gona altxatu egin zaio, eta argi eta garbi ikusten dugu nola Mikel, **erregatean** trebatua, eskua txoko kixkurretan sartzen hasten den. Xabier Mendiguren Elizegi

---

erregateatu, erregatea(tu), erregateatzen du *ad* erosketa batean prezioa eztabaidatu.

Ez zuen inoiz arrainen tamainaren konturik egiten, ez zuen zenbat ale zituen zenbatzen, ez zuen diru prezioetan **erregateatzen**. Edorta Jimenez

---

erregateo *iz* erregateatzea, prezioa eztabaidatzea.

Zeren eta turkiar idazleek **erregateoan** jardun dute eta hara sarreraren prezioa 50 errublotara jaistea lortu dute. Edorta Jimenez

---

errege **1** *iz* erreinu bateko buru den gizonezkoa; gailentzen den pertsona, animalia edo gauza. ik**erregina**.

Hagit-en seme Adoniasek bere burua **errege** izendatu duela, David gure jaunak deus ere jakin gabe. Elizen arteko biblia

Samuelek **errege** sagaratu Saul. Elizen arteko biblia

Ez al zaitu Jaunak Israelen **errege** gantzutu? Elizen arteko biblia

Demetrio, berriz, **errege** izaten hasi zen. Seleukotarren agintaldiko ehun eta hirurogeita zazpigarren urtea zen. Elizen arteko biblia

Berrogeita bat urte zituen **errege** izaten hastean, eta hamazazpi urtez izan zen **errege** Jerusalemen, Salomon Israel osoko **errege** zen. Elizen arteko biblia

Jaunak Israel beti maite izan duelako egin zaitu zu **errege**, zuzenbidez eta zuzentasunez goberna dezazun. Elizen arteko biblia

Gizaseme, zuzendu faraoiagana, Egiptoko **erregeagana**, eta hitz egin nire izenean beraren eta Egipto osoaren kontra. Elizen arteko biblia

Tiroko **errege** Hiramek eskuratu zion Salomoni nahi bezainbat zedro eta zipres-zur eta urre. Elizen arteko biblia

Asa eta Israelgo **errege** Baxaren artean etengabeko borroka izan zen. Elizen arteko biblia

Ospetsuena, beharbada, Elias izan zen, Israelgo **errege** Akaben garaikoa. Jose Antonio Mujika

Berrogei urtez izan zen David Israelgo **errege**. Elizen arteko biblia

Hexbon zen amortarren **errege** Sihonen hiriburua; honek, Moabeko lehengo **erregeari** eraso eta lurraldea kendua zion Arnon errekaraino. Elizen arteko biblia

Hurrengo urtean, **erregeek** guduari ekin ohi dioten garaian, Davidek Joab bidali zuen bere ofizialekin eta Israelgo gudari guztiekin. Elizen arteko biblia

Erregeak, haiengana itzulirik, biltzarra bedeinkatu zuen.

Orduan, familiaburuek, Israelgo leinuburuek, milako eta ehuneko gudari-taldeen buruzagiek eta **erregearen** administratzaileek eskuzabal egin zituzten beren emaitzak. Elizen arteko biblia

Hala ere, **erregearen** agindua onartu behar izan zuen Joabek. Elizen arteko biblia

Oinordetzazkoa zen, **erregeak** dinastia beraren barruan hautatzen zirelako, eta semeak zirelako oinordeko. Iñaki Iñurrieta

Handik bi urtera, Antioko **erregeak** ofizial zerga-biltzaile bat bidali zuen Judeako hirietara. Elizen arteko biblia

Izan ere, zilar, urre, jantzi eta beste eskuerakutsi asko harturik, **erregeagana** joan zen Ptolemaidara. **Erregeak** onez hartu zuen. Elizen arteko biblia

Bazituen **erregeak** itsasoan ur handietarako merkataritza-ontziak, Hiram **erregearen** ontziteriarekin batera ibiltzeko. Elizen arteko biblia

Siriako **erregeek** Egiptokoei utzi zieten Indietako hegoaldeko merkataritza, eta iparraldeko merkataritzari lotu zitzaizkion bakarrik. Iñaki Iñurrieta

Benaiasek **erregeari** jakinarazi zion Joaben erantzuna. Elizen arteko biblia

Egun berean jakinarazi zioten **erregeari** zenbat izan ziren Susan hildakoak. Jose Antonio Mujika

Erregearen senitarteko guztiak hiltzea erabaki zuen. Elizen arteko biblia

Saul **erregearen** aurrekoak eta ondorengoak. Elizen arteko biblia

Erregearen agindu zorrotzaren arabera labea bizi-bizi piztu baitzuten, Xadrak, Mexak eta Abed-Nego jaurtikitzeko labera hurbildu ziren gudariak berak suak kiskalita hil ziren. Elizen arteko biblia

Jeroboamen gainerako jardunak, izan zituen guduak eta nola gobernatu zuen "Israelgo **Erregeen** Kronika" liburuan daude idatziak. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Demetriok etxera bidalitako gudariak **errege** berriaren inguruan bildu ziren eta Demetrioren aurka borrokatu. Elizen arteko biblia

Ez dezake nehork sinets hain **Errege** puxantak, hainbeste erreinuz eta hainbeste hiri indartsuz aberats denak, hainbeste aitzindari handiz eta gudariz inguratuak, hainbeste garaipenez sariztatuak ez ditzakeela suntsi bere erreinuko luthertiarren hondakinak. Piarres Xarriton

Orduan, Antioko **errege** gazteak gutun hau idatzi zion Jonatani: [...]. Elizen arteko biblia

Nahiz eta **errege** bisigodoek erromatar zuzenbidea debekatu, iraun egin zuen Galiaren hegoaldean zituzten lurraldeetan. Iñaki Iñurrieta

Izan ere, Egiptoko **errege** faraoiak eraso eta hartu egin zuen Gezer hiria. Elizen arteko biblia

Salomon Israelgo **errege** gantzutua. Elizen arteko biblia

Guri, zeure zerbitzarioi, ez diguzu esan nor izanen den zure hurrengo **erregea**. Elizen arteko biblia

Erranen dugu beraz ahalkegarria dela bake hori, Frantziako **Errege** guztiz kristauarentzat. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa orobat**erret**)

Engainatu egiten dute honetan beren burua munduko hainbat **errege**-erreginek. Askoren artean

Zoazte eta emaiozue lur emakume madarikatu horri, **errege**-alaba denez gero. Elizen arteko biblia

Bere anaia guztiak -erregearen semeak- gonbidatu zituen, eta baita Judako **errege**-zerbitzari guztiak ere. Jose Antonio Mujika

Errege-etxe iraunkorra emango dizut, Davidi eman niona bezalakoa. Israel emango dizut. Elizen arteko biblia

Salomonek Jaunaren etxea, **errege**-jauregia eta berak nahi izan zuen guztia eraiki zuenean. Elizen arteko biblia

Ez da egoki ni, zure zerbitzari hau, zure ondoan **errege**-hirian egotea. Elizen arteko biblia

Eufrates ibaitik Egiptoko mugetara arteko lurraldean Lisias utzi zuen **errege**-arazoen arduradun nagusi; handikietakoa zen Lisias eta **errege**-jatorrikoa. Elizen arteko biblia

Arigita, Francisco de Navarra... Biografia luzea, haren **errege** etorkia aipatzen duena eta Orreagako priore izendapena zehazten. Piarres Xarriton

Halaxe hil ziren Saul eta beronen hiru semeak. Joab zen **errege**-gudarostearen buruzagi nagusia. Elizen arteko biblia

Egun berean **errege**-familia osoa galdu zen. Elizen arteko biblia

Zuek, ordea, jatorri aukeratu zarete, **errege**-apaizgo, nazio sagaratu, Jainkoak beretzat irabazitako herri, ilunpetatik bere argi zoragarrira deitu zaituzten Jainkoaren egintza bikainak iragar ditzazuen. Elizen arteko biblia

Bulegoko lanetan bai izanen zen kardinale eredugarria, baina **gure** Errege zuhurtziaz betea fidatzen ahalko ote zitzaion Erromako politikarekin gerta zitezkeen arazoetan? Piarres Xarriton

Ingalaterran, aduanak **errege**-administrazioak kudeatuta baitaude, negoziatzeko oso erraztasun bitxia dago: hitz bat idaztea aski da traturik handienak egiteko. Iñaki Iñurrieta

Ikusi dituzun hamar adarrak, oraindik erregetza hartu ez duten hamar errege dira; piztiarekin batera hartuko dute **errege** -agintea, baina ordu baterako bakarrik. Elizen arteko biblia

Errege -jurisdikzioak mugatu egin zuen pixkanaka eliz jurisdikzioa, eta honek atzera egin zuen. Iñaki Iñurrieta

Alexandro hil zenean, **errege** -koroa jantzi zuten denek. Elizen arteko biblia

Karlosek Mendebaldeko Frantziako **errege** titulua hartu zuen. Iñaki Iñurrieta

Nik jantziak aldatuko ditut borroka hasteko; zuk jarraitu zeure **errege** -jantziekin. Elizen arteko biblia

Nire seme Salomon izanen zela zure hurrengo erregea eta bera jarriko zela zure **errege** -aulkian. Elizen arteko biblia

Egin zuen, orobat, **"Errege** -aulkiaren aretoa" edo "Epaitegi-aretoa" zeritzana ere. Elizen arteko biblia

Errege -altxorraren arduraduna. Elizen arteko biblia

Egundoko afaria egiten ari zen hau bere etxean, **errege** -otordua adinakoa. Elizen arteko biblia

Jauregitik irten zen Urias, eta **errege** -opari batek jarraitu zion ondotik. Jose Antonio Mujika

Jaunak asko goratu zuen Salomon Israel osoaren begietan eta ordurarte Israelgo erregeetan beste inori baino **errege** -ospe handiagoa eman zion. Elizen arteko biblia

Alcobaçako **Erret** Komentuko artxibategian. Jon Alonso

Gero **Erret** Kontseilu Goihenak erabaki zuen delako ene Eskuliburua Gaztelan inprimatuko zela. Piarres Xarriton

Euskal Herriko Adiskideen **Erret** Elkartea (RSBAP) bitarteko dela. Berria - Kultura

Gai horretaz galdekatua izanik Madrilen, han baita jarria **erret** auzitegia, ea zezen lasterren jokoa bekatu mortala den, honela ihardetsi nuen: [...]. Piarres Xarriton

-Berlingo Alemaniako Musikaren Ikerketarako **Erret** Institutuan. Alberto Ladron Arana

San Fernandoko Arte Ederretako **Erret** Akademiaren eskutik. Berria - Kultura

Parisko **Erret** Musika Akademian. Felipe Juaristi

Don Carlosek goizean Zugarramurdiko elizaren aurrean irakurrarazitako **Erret** Mezu berbera irakurrarazi du bigarren aldiz; baina batailoien aurrean oraingoan: [...]. Txillardegi

Eta urte batetik bestera, xuhurki bizi ziren laborarien zorrak **erret** -aginduz hurritzen ziren. Michel Oronoz

573/1976 **Erret** Dekretuaren bidez Euskararen **Erret** Akademia bihurtu zen. Herria

4 (mugagabean)

Erregek biziki gaizki hartu bide zuen gutuna eta ez zion berak ihardetsi nahi izan, baina Carranzaren epaileari helarazi zion gutuna bera. Piarres Xarriton

Erregek Parisko artxapezpiku izendatu nahi izan zuen. Xipri Arbelbide

Erregek , halere, ezbeharretik gorde nahi izan zuen bere alaba maitea. Iban Zaldua

Erregek , zeina hitzaldiek, inorenak eta luzeak zirenean, erraz aspertzen baitzuten, hats hartu zuen hura amaiturik, eta erran zion: [...]. Juan Garzia

Erregek berak bere eskuz sinatuak zeuden paper horiek. Aingeru Epaltza

Erregek ohore handia egin dik. Aingeru Epaltza

Huts larria izan zitekeen, zigorra ekar zezakeena, **Erregek** agindutakoak baino kristau bat gutxiagorekin agertzea Lisboara. Edorta Jimenez

Baina halako zerbitzariak ditu **erregek** baliagarrien azkenean. Juan Garzia

Gilles eta Jeanneren hiri bilakatu ziren Orleans, Chinon eta Reims eta **erregek** Frantziako marexal izendatu zuen Gilles. J.M. Olaizola "Txiliku"

Artur **erregek** irribarre egiten du. Juan Kruz Igerabide

Kontua da Poloniako **erregek** ez zuela dirurik estatua hura ordaintzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Geth da ziutate bat miresgarria, Persiako **erregek** baditu han baratze ezin sinetsizkoak, mila iturriz urtatuak. Aurelia Arkotxa

Are gehiago, aldegin ez zezaten, moroak babesteko legea ezarri zuen **erregek** , Nafarroan aberastasun handia sortzen zutelakotz. Patziku Perurena

Kontatu zigun nola hatsarrean **erregek** irri egin zion, baina baita harri eta zur geratu zela ere, hondarrean, emaitza ikusi zuenean. Joan Mari Irigoien

Orduan hitzaldi labur bat bota die **Erregek** gaztelaniaz buruzagi politiko, eliz agintari, Probintzi Guraso eta Bizkaiko alkateei. Txillardegi

Mutilekin osoki bat eginda jokatu nahi omen dik **Erregek** . Txillardegi

Eltxo baten ziztadak esnatu zuelako, eltxo guztiak hiltzea agindu zuen Bi Sizilietako **erregek** . Anjel Lertxundi

Eta **Erregek** berak ongi bazekien hori, Azpilkuetak askotan igortzen zizkion txostenengatik. Piarres Xarriton

-Guda-gizon jakintsuari dagokion bezala egin du **Erregek** , bere erresumak horniarazte horretan, etsaiak esku-hutsik harrapatu ez dezan alegia. Patxi Ezkiaga

Arazoa **erregeren** belarrietara iritsi da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez al du **erregeren** antza? Juan Garzia

Herriko Etxean, ate gainean, **Erregeren** arma-ikurrak pintatzeko agindu zion udal-bazkunak. Patxi Ezkiaga

Ezin ziren faltsutzat jo **erregeren** epaitegian emandako epaiak. Iñaki Iñurrieta

Atzoko gauez, Iruñeko **Erregeren** Palazioan hil zen Karlos II. Patziku Perurena

Erregeren sekretua arrotzei jakinarazi zienaren aurka. Iñaki Iñurrieta

Gure ohiturek hiru ezaugarri hartu zituzten: idatzita jarri ziren, orokorrago bihurtu ziren, **erregeren** autoritatearen zigilua jaso zuten. Iñaki Iñurrieta

Don Carlos **erregerekin** harreman estuan ari duk. Txillardegi

Hamlet laztana, uxa ezak, uxa, kolore gautu hori, eta lagun gisa egiok so **erregerekin** Danimarkari. Juan Garzia

Horazio, lerrook irakurritakoan, emaiek gizonoi **erregerengana** sarbide. goruren bat gordetzen zuenak buruarekin ordainduko zuen, eta kaltetuek **erregerengana** jo zezaketen, diru-sari bat agindu baitzien konpentsazio gisa. Juan Garzia

Eskultoreak Poloniako **erregerentzat** egin omen zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste zaldi baten gainean, **Erregeri** orpoz orpo jarraikiz, Manterola bera zetorrean, Deputatua, Don Carlosen konfiantzako gizona. Txillardegi

Gertaera horrek halako haserrea eragin zion **Erregeri** , non Lehen Ministroari heriotza ezarri baitzion. Xabier Olarra

Egiaztatzeko ea zinez sekretuki bidalia zion bere txostena **Erregeri** , ala Erromako edo Trentoko bideetan ateraia zen. Piarres Xarriton

Horra zer idatzi zion **erregeri** . Xipri Arbelbide

5 *erregezko izlag*

Gazte hareganako gorrotoak, bastart hareganako gorrotoak, nire aita odolezko, **erregezkoaren** seme bort hareganako gorrotoak arrazoiaren tokia usurpatzen zidan. Matías Múgica

Benetako izenak argi epela zabaltzen zuen, intimoa-edo; faltsuak, berriz, ezin sinistuzko distira zuen, **erregezkoa** . Matías Múgica

6 *errege bide (ETCn 238 agerraldi; orobat erregebide ETCn 80 agerraldi)* ik **errepide**.

Aski ilundu zuen, eta ilun patsa zen; baina, halaz eta guzti, ibilian zihoazen; **errege-bidea** zen-eta, bentaren bat aurkituko zuela uste zuen Santxok, bizpahiru legoaren buruan. Patxi Ezkiaga

Hemendik atera, eta har ezazue ibai aldera doan **errege-bidea** . Aurelia Arkotxa

Iragan ditugu karrika eta zubia, eta **errege bidea** hartu dugu gau beltzean, hiru gizonek sutu, xaxatu, kitzikatu, zigortu, akuilatu, onetik ateratako zortzi mandoren lauhazka suharrean. Koldo Izagirre

Trabak ezartzen baldin badizkizute bidean, ez iezaiozula nehori kasu egin, jarraiki zakizkio beti **errege-bide** handiari eta zoaz zuzen nehora itzuli gabe. Aurelia Arkotxa

Lurrezko **errege-bidean** , autoa emeki eta jauzika doa. Aurelia Arkotxa

Hor bururatzen da **errege-bidea** . Aurelia Arkotxa

Etxe hori dago Gorosgarai eta Benta deitu bordak baino goraxago, **errege bidearen** peko aldean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Landetan barna ibili zen, beti ekialderantz, eta gero hegoalderantz jo zuen, **errege bidetik** , Donibaneraino iritsi arte. Elena Touyarou

Errege bide handiaren eta Lizardiko zelaiaren bide kurutzean azken urte huntan lan handiak eginak izan dire. Herria

Autoaren argiak **errege-bide** iluna zilatu nahian zebiltzan. Aurelia Arkotxa

Errege-bide bazter hartan, goizeko bietan jadanik ez zelako nehor pasatzen, elkartasunaren erre usainak zekarkidan bakardadeaz goza nezakeen. Itxaro Borda

Frankotan, **errege-bide** bustian zirristan dabilen auto baten zaratak ametsa hausten dit bat-batean. Itxaro Borda

Herriraino zeraman **errege-bide** hertsia azken aldikotz hartu zuten. Aurelia Arkotxa

7 irud/hed

Zientzia-artikuluetan, iluntasunetik argirantz daraman **errege-bide** batean barrena doa adimena. Juan Garzia

Gaztetasun totel batetik heldutasun betera daraman **errege-bidea** ibili. Juan Garzia

Arrazoimenaren ekimen penatzailetik askatzeko manera eszeptikoak, nolabait esateko, lasaitasun filosofiko iraunkorrera iristeko bide motzena izatea dirudienez, edo **errege-bidera** iristeko bederen. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

amortarren errege (7); **asiriako errege** (26); **azken errege** (6); **babiloniako errege** (54); **babiloniako errege nabukodonosor** (14); **babiloniako errege nabukodonosorrek** (17); **babiloniako errege nabukodonosorren** (14); **baina errege** (14); **baitute jainkoa errege** (11); **batuko errege** (6); **baxango errege** (8); **baxango errege og** (6); **bere burua errege** (7); **bere errege** (18); **beren errege** (8); **beste errege** (13); **bi errege** (6); **burua errege** (7); **da errege** (24); **david errege** (6); **daviden errege** (8); **dira errege** (11); **du errege** (13); **duen errege** (8); **dute errege** (8); **edo errege** (10); **egiptoko errege** (26); **ene errege** (54); **ene errege jauna** (30); **ere errege** (16)

errege ahaltsu (7); **errege akaben** (6); **errege akazias** (6); **errege alaba** (6); **errege aulki** (6); **errege aulkia** (14); **errege aulkian** (55); **errege aulkian eseri** (7); **errege aulkian jarri** (8); **errege bakarra** (6); **errege bat** (42); **errege batek** (20); **errege baten** (25); **errege beltza** (9); **errege beltzak** (6); **errege beltzaren** (6); **errege ben** (6); **errege berria** (13); **errege berriaren** (7); **errege bezala** (6); **errege bide** (13); **errege bidea** (13); **errege bilakatu** (7); **errege bizi** (6); **errege da** (19); **errege da jauna** (7); **errege dekretu** (10); **errege dekretua** (7); **errege den** (10); **errege edo** (12); **errege egin** (14); **errege egun** (6); **errege egunean** (13); **errege eguneko** (26); **errege eguneko krosa** (7); **errege ere** (8); **errege erregina** (13); **errege erreginak** (38); **errege erreginei** (7); **errege erreginek** (14); **errege erreginen** (37); **errege eta** (98); **errege etxe** (6); **errege etxea** (9); **errege etxearen** (15); **errege ez** (7); **errege familia** (7); **errege familiako** (8); **errege familiaren** (6); **errege filipe** (7); **errege filipek** (6); **errege gantzutu** (9); **errege gaztearen** (6); **errege gorenaren** (8); **errege gure** (6); **errege guztiak** (12); **errege guztiek** (10); **errege guztiz** (6); **errege handi** (8); **errege handia** (13); **errege handiak** (8); **errege handiaren** (14); **errege hark** (8); **errege henrike** (8); **errege henrikeren** (7); **errege honek** (7); **errege hori** (7); **errege hostoak** (6); **errege hura** (6); **errege izan** (55); **errege izan nahi** (10); **errege izan zen** (13); **errege izanen** (9); **errege izango** (22); **errege izatea** (14); **errege izateko** (24); **errege izaten** (81); **errege izaten hasi** (10); **errege izaten hastean** (35); **errege izaten samarian** (6); **errege izendatu** (28); **errege izendatu zuten** (6); **errege jaun** (15); **errege jauna** (95); **errege jaunak** (29); **errege jaunaren** (19); **errege jaunari** (8); **errege jauregian** (6); **errege jerusalemen** (45); **errege joaxek** (6); **errege josafat** (6); **errege juan** (9); **errege juan carlos** (8); **errege judako** (14); **errege karlos** (7); **errege katolikoak** (7); **errege katolikoek** (9); **errege katolikoen** (8); **errege kopako** (8); **errege koroa** (7); **errege koroatu** (9); **errege koroatu zutenean** (6); **errege magoak** (18); **errege magoek** (6); **errege magoen** (18); **errege makila** (12); **errege mendiko** (6); **errege mohamed** (9); **errege mohamed vi** (8); **errege nabukodonosor** (15); **errege nabukodonosorrek** (18); **errege nabukodonosorren** (16); **errege nahi** (7); **errege og** (6); **errege ohiaren** (8); **errege seme** (6); **errege senakeribek** (6); **errege titulua** (9); **errege zaharra** (6); **errege zaharrak** (14); **errege zaharraren** (7); **errege zela** (13); **errege zen** (19); **errege zirok** (6)

eko errege (8); **erresuma batuko errege** (6); **espainiako errege** (70); **espainiako errege erreginak** (15); **espainiako errege erreginek** (6); **espainiako errege erreginen** (8); **espainiako errege juan** (8); **eta errege** (156); **eta israelgo errege** (15); **eta judako errege** (19); **eta nafarroako errege** (7); **ez errege** (6); **frantziako errege** (51); **gaztelako errege** (7); **gure errege** (53); **gure errege eta** (7); **hain errege** (9); **hango errege** (11); **haren errege** (9); **hau errege** (7); **hexbongo errege** (7); **hiru errege** (12); **ingalaterrako errege** (12); **iruñ israel osoaren errege** (9); **israel osoko errege** (6); **israelen errege** (15); **israelgo errege** (129); **israelgo errege aulkian** (10); **israelgo errege izaten** (14); **israelgo errege judako** (14); **izan zen errege** (65); **izendatu zuen errege** (9); **jainkoa errege** (14); **jarri zen errege** (7); **jauna errege** (7); **jordaniako errege** (7); **judako errege** (137); **judako errege akazias** (6); **judako errege izaten** (9); **judako errege josafat** (6); **juduen errege** (6); **marokoko errege** (11); **marokoko errege mohamed** (9); **moabeko errege** (10); **munduko errege** (10); **nafarroako errege** (54); **ni errege** (8); **nire errege** (19); **nire errege aulkian** (6); **ondorengo errege** (7); **osoaren errege** (14); **osoko errege** (11); **pertsiako errege** (14); **siriako errege** (24); **siriako errege ben** (6); **tiroko errege** (7); **tzobako errege** (6); **urte zituen errege** (8); **zen errege** (107); **zen errege jerusalemen** (40); **zen israelgo errege** (6); **zen judako errege** (7); **zeruan errege** (7); **zion errege** (8); **ziren errege** (8); **zituen errege** (13); **zituen errege izaten** (8); **zuen errege** (43); **zure errege** (9); **zuten errege** (13)

antioko erregea (7); **antso erregea** (7); **artur erregea** (18); **asiriako erregea** (12); **babiloniako erregea** (8); **badr erregea** (6); **baina erregea** (7); **birendra erregea** (7); **da erregea** (12); **david erregea** (7); **egiptoko erregea** (6); **erregea baino** (7); **erregea bera** (10); **erregea bere** (23); **erregea da** (10); **erregea ere** (16); **erregea eta** (118); **erregea eta bere** (10); **erregea eta beronen** (6); **erregea eta haman** (6); **erregea ez** (22); **erregea haren** (29); **erregea haren seme** (26); **erregea haserre** (6); **erregea hil** (28); **erregea hiltzeko** (11); **erregea hiltzeko asmotan** (7); **erregea ikusi** (7); **erregea ikustera** (7); **erregea itzuli** (6); **erregea izan** (13); **erregea izango** (6); **erregea zela** (7); **erregea zen** (10); **erregeagana eta** (6); **erregeagana jo** (9); **erregeagana joan** (16); **erregeagana joan eta** (10); **espainiako erregea** (46); **espainiako erregea eta** (7); **eta erregea** (53); **fahd erregea** (8); **frantziako erregea** (18); **gora erregea** (7); **gure erregea** (10); **gyanendra erregea** (6); **hurrengo erregea** (15); **israelgo erregea** (29); **jainkoa eta erregea** (6); **juduen erregea** (19); **lehen erregea** (7); **nafarroako erregea** (7); **og erregea** (6); **ondorengo erregea** (33); **ondorengo erregea haren** (22); **salomon erregea** (9); **zen erregea** (32); **zuen erregea** (16)

a erregeak (15); **agindu zuen erregeak** (15); **akaz erregeak** (7); **alexandro erregeak** (6); **antioko erregeak** (10); **artur erregeak** (9); **asiriako erregeak** (17); **asuero erregeak** (13); **babiloniako erregeak** (20); **baina erregeak** (12); **dario erregeak** (7); **david erregeak** (11); **demetrio erregeak** (11); **du erregeak** (11); **egin zuen erregeak** (6); **egiptoko erregeak** (8); **eko erregeak** (9); **erregeak agindu** (36); **erregeak agindu bezala** (9); **erregeak agindu hau** (7); **erregeak agindu zuen** (11); **erregeak agindua** (8); **erregeak berak** (23); **erregeak bere** (52); **erregeak bezala** (6); **erregeak erantzun** (31); **erregeak erantzun zien** (6); **erregeak erantzun zion** (19); **erregeak ere** (25); **erregeak esan** (53); **erregeak esan zien** (9); **erregeak esan zion** (23); **erregeak esan zuen** (16); **erregeak eta** (48); **erregeak ez** (35); **erregeak ez du** (6); **erregeak ezin** (6); **erregeak galdegin** (10); **erregeak galdegin zion** (8); **erregeak galdetu** (21); **erregeak galdetu zion** (15); **erregeak ohoratu** (14); **erregeak ohoratu nahi** (14); **erregeak ongi** (7); **erregeak ongi baderitzo** (6); **esan zion erregeak** (11); **esan zuen erregeak** (9); **espainiako erregeak** (30); **eta erregeak** (71); **frantziako erregeak** (14); **gyanendra erregeak** (22); **iruñ israelgo erregeak** (29); **marokoko erregeak** (6); **moabeko erregeak** (6); **munduko erregeak** (6); **nabukodonosor erregeak** (11); **nafarroako erregeak** (13); **salomon erregeak** (20); **sedekias erregeak** (11); **siriako erregeak** (6); **zien erregeak** (18); **zion erregeak** (36); **ziren erregeak** (6); **zituen erregeak** (15); **zuen erregeak** (77)

a erregearen (13); **artur erregearen** (20); **asiriako erregearen** (21); **asiriako erregeari** (13); **asuero erregearen** (16); **babiloniako erregearen** (43); **babiloniako erregeari** (6); **da erregearen** (8); **david erregearen** (10); **david erregeari** (8); **du erregearen** (7); **erantzun zion erregeari** (6); **erregearekin batera** (10); **erregearekin bildu** (6); **erregearen adiskide** (6); **erregearen agindua** (29); **erregearen aginduak** (11); **erregearen aginduz** (9); **erregearen aitzinera** (6); **erregearen alaba** (12); **erregearen alde** (11); **erregearen aurka** (18); **erregearen aurkako** (10); **erregearen aurrean** (42); **erregearen aurrera** (29); **erregearen emaztea** (9); **erregearen esku** (13); **erregearen eta** (44); **erregearen garaian** (14); **erregearen inguruan** (6); **erregearen itzulera** (6); **erregearen izenean** (13); **erregearen jauregian** (15); **erregearen kontra** (18); **erregearen kontrako** (7); **erregearen mahaian** (6); **erregearen menpe** (6); **erregearen menpeko** (15); **erregearen ondoan** (15); **erregearen seme** (13); **erregearen semea** (11); **erregearen zerbitzura** (7); **erregeari eman** (6); **erregeari esan** (9); **erregeari eta** (18); **esan zion erregeari** (15); **espainiako erregearekin** (17); **espainiako erregearen** (37); **espainiako erregeari** (16); **esterrek erregeari** (7); **eta erregearen** (84); **eta erregeari** (13); **frantziako erregearen** (13); **gure erregearen** (8); **gyanendra erregearen** (14); **israelgo erregeari** (12); **judako erregearen** (15); **nabukodonosor erregearen** (8); **nafarroako erregearen** (8); **pepin erregearen** (6); **salomon erregearen** (15); **salomon erregeari** (7); **zen erregearen** (29); **zen erregearen aurrean** (7); **zion erregeari** (43); **zioten erregeari** (23); **ziren erregearen** (13); **zituen erregearen** (8); **zituzten erregearen** (6); **zitzaion erregeari** (9); **zuen erregearen** (18); **zuten erregearen** (11)

aurreko erregeek (8); **erregeei eta** (7); **erregeek ez** (7); **erregeen aurrean** (6); **erregeen eta** (9); **erregeen kronika** (36); **erregeen kronika liburuan** (36); **erregeen liburuan** (11); **erregeen liburuan daude** (7); **erregeen ondoan** (6); **erregek ez** (7); **erregeren eta** (9); **erregerik ez** (9); **eta erregeen** (25); **eta erregek** (6); **eta erregeren** (18); **eta israelgo erregeen** (6); **frantziako erregeren** (24); **gure erregeren** (9); **guztiak judako erregeen** (6); **israelgo erregeen** (35); **israelgo erregeen kronika** (19); **israelgo erregeen liburuan** (7); **judako erregeek** (7); **judako erregeen** (22); **judako erregeen kronika** (15); **nafarroako erregeen** (7); **zion erregeri** (6); **zuen erregek** (10)

erret aginduz (3); **erret akademiaren** (3)

---

erregealdi *(orobat **erregaldi** g.er.) iz* erregearen agintaldia.

Ezekiasen **erregealdiaren** bukaera.

Bere **erregealdiko** zortzigarren urtean, oraino gazte zelarik, bere arbaso Daviden Jainkoarengana jo zuen. Elizen arteko biblia

Konstantinoplan, berriz, Konstantinoren **erregealdian**, urkatu egin omen zuten Sopater delako bat, magiaz baliaturik haizeak lotzen zituela salatuz. Patziku Perurena

San Luisen **erregealdian** eta ondorengoetan, legegizon abilek, hala nola Défontaines, Beaumanoir eta beste batzuek, idatziz jarri zituzten beren barrutietako ohiturak. Iñaki Iñurrieta

Esango al digu, bada, Turkian inoiz kexatu ote diren jaiotzaz apalak ziren pertsonak ohore eta kargu altuetara goratzeagatik, Luis Errukitsuaren eta Karlos Burusoilaren **erregealdietan** kexatzen ziren bezala? Iñaki Iñurrieta

Darioren **erregealdiko** bigarren urtean, zortzigarren hilean, Idoren seme zen Berekiasen seme Zakarias profetari mintzatu zitzaion Jauna. Elizen arteko biblia

Norbaitek esan du aita Luis XV.aren **erregealdiko** libertinorik distiratsuenetakoa izan zela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Iruñeko Antso III.a Nagusiaren **erregealdia** (1004-1035) aztertuko dute han, lurraldez lurralde, hainbat adituren parte-hartzearekin. Berria - Kultura

Antso Handia Nafarroako erregea nor izan zen eta bere **erregealdia** nolakoa izan zen. Herria

Ez zen ordea horrela gertatzen **erregealdi** berrian, eta deitoragarri zitzaion bene-benetan polizi buruari! Karlos Zabala

Konstituzio horrek zuzendu zituen gehiegikeriek iraun egin zuten Klotario I.a hil eta gero ere, eta beren gehienera iritsi ziren Gontranen **erregealdi** ahulean. Iñaki Iñurrieta

Karlomagnoren ondorengo **erregealdi** zorigaitzekoek, normandiarren inbasioek, barne-gerrek, atzera ere hasierako iluntasunean murgilarazi zituzten nazio garaileak. Iñaki Iñurrieta

Haren **erregealdi** osoan lasai bizi izan ziren Juda eta Israel, nor bere mahatsondo edo pikondoaren itzalean. Jose Antonio Mujika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artaxerxesen erregealdiko (5); **artaxerxesen erregealdiko hogeigarren** (3); **asaren erregealdiaren** (3); **asaren erregealdiko** (10); **asaren erregealdiko hogeita** (7); **asueroren erregealdiaren** (4); **azariasen erregealdiko** (4); **bere erregealdian** (3); **bere erregealdiaren** (4); **bere erregealdiko** (13); **bere erregealdiko hemezortzigarren** (3); **bere erregealdiko hirugarren** (3); **darioren erregealdiko** (8); **darioren erregealdiko bigarren** (6); **erregealdiaren bukaera** (10); **erregealdiaren zazpigarren** (3); **erregealdiko bederatzigarren** (4); **erregealdiko bederatzigarren urtean** (3); **erregealdiko berrogeita** (3); **erregealdiko bigarren** (10); **erregealdiko bigarren urtean** (7); **erregealdiko hamabigarren** (3); **erregealdiko hamabigarren urtean** (3); **erregealdiko hamazazpigarren** (3); **erregealdiko hamazazpigarren urtean** (3); **erregealdiko hemezortzigarren** (7); **erregealdiko hemezortzigarren urtean** (7); **erregealdiko hirugarren** (8); **erregealdiko hirugarren urtean** (8); **erregealdiko hogeigarren** (5); **erregealdiko hogeigarren urtean** (4); **erregealdiko hogeita** (15); **erregealdiko hogeita zazpigarren** (3); **erregealdiko laugarren** (8); **erregealdiko laugarren urtean** (6); **erregealdiko lehen** (5); **erregealdiko lehen urtean** (3); **erregealdiko zazpigarren** (3); **erregealdira arte** (3); **ezekiasen erregealdiko** (4); **haren erregealdian** (3); **jeroboamen erregealdiko** (4); **joaxen erregealdiko** (4); **joaxen erregealdiko hogeita** (3); **joramen erregealdiko** (3); **judako asaren erregealdiko** (8); **judako azariasen erregealdiko** (4); **nabukodonosorren erregealdiko** (5); **oseasen erregealdiko** (4); **roboamen erregealdiaren** (3); **sedekiasen erregealdiko** (5)

---

erregebide ik **errege 5**.

---

erregegai *iz* erregeren oinordeko pertsona.

Laster hasiko dira gure errepublika honetara printze eta **erregegaiak** etortzen. Felipe Juaristi

Erregegai bakoitzak bere tokia hartua zuen, berarentzat eta jarraitzaileentzat, asko baitziren denera. Felipe Juaristi

Erregegai bakar, beraz, Don Carlos gaztea gertatu zen (orduan bere hogeigarren urtean). Txillardegi

Baxenafarrek mistelaren bukoietan gordeta pasatzen zituzten Hegoaldera Karlos **erregegaiaren** proklamak. Anjel Lertxundi

Otsailaren 9 an Felipe **erregegaia** izan da Orreagan urte saindukari, duela hameka urte bezala. Herria

Hitz hauek itxaroten ari ziren seinalea bailiran, hainbat gerlari oihuka hasi ziren zalaparta nahasgarri batean, denak ere bere buruzagiaren izena **erregegaitzat** aldarrikatuz. Joanes Urkixo

---

erregego *iz* erregetza.

Antiokian sartu eta Asiako **erregegoa** hartu zuen eta bi erreinuetako koroaz jabetu: Egiptokoaz eta Asiakoaz. Elizen arteko biblia

Herri zokoratu eta kolonizatu baten itxura baldin bagenuen, Humboldten arabera, XIX. mende hastean, ez daiteke hainbat ontu gure zortea Frantziaren edozein inperio, **erregego** ala errepublika irudiko Estatu-Nazio subiranoaren menpean. Piarres Xarriton

Eskoladunek irakatsi zuten gero, Pepin erregeak Jainkoaren eskutik zeukala, zuzenean, bere **erregegoa**. Piarres Xarriton

Jesus Nazaretekoari ere, bere **erregegoaz** iseka eta burla egiteko, trapu eskarlatazkoa janzteaz batera, buruan elorri-arantzazko koroa eta kanabera eskuan ipini zizkioten. Pello Zabala

---

erregekide *iz* beste batekin batera errege dena.

Joanes Albretekoa (1477 - Monein, 1516), Nafarroako **erregekidea** Katalina I.a Foixkoa haren emaztea erregina bilakatu zenez geroztik. Aingeru Epaltza

---

erregekiro *adlag* erregeei dagokien bezala.

-Ba nik, Donostian, haur ttipi-ttipia nintzenean, urrutitik ikusi nituen biok, musika bandek **erregekiro** errezebituak. Txillardegi

Orduz geroztik zekenkeriara eta arrarotasunera makurtuz joan zen, hainbat nola gaztetan izan baitzen **erregekiro** eskuzabal, emakume eder eta oso maitatuak ohi direnez. Juan Garzia

---

erregela **1** *iz* zurezko, plastikozko edo metalezko oholtxo luzea eta ertz-arteza, lerro zuzenak egiteko eta distantziak neurtzeko erabiltzen dena.

Kareorearen lerrokadurak markatuko dira, luzetarakoak **erregela** eta kordelarekin, altuerak berunarekin, eta angeluak eskuairarekin ondo markatuz. Konpasa, **erregela**, arkatza. Santiago Iruretagoiena

Ukondoak mahai beltzaren gainean jarrita, kontu handiz darabiltzat konpasa, **erregela**, kartaboia. Josu Zabaleta

Erregelatzat, berriz, bitan tolesturiko paper-orri batez baliatzen zen. Juan Garzia

Geometriak ere laguntza handiak ematen dizkio arkitekturari; horietako lehenengoa, **erregela** eta konpasa erabiltzeko trebetasuna ematen duela. Santiago Iruretagoiena

Ezinezkoa da angeluaren trisekzioa **erregelaz** eta konpasaz egitea. Jon Muñoz

Erregelaz egindako auzune dotorea da, kale zabalez eta parkez josia. Urtzi Urrutikoetxea

Nukleoaren gainean zoladura jarriko da **erregela** eta nibelarekin doi-doi berdinduta, marmolezko losazkoa edo mosaikozkoa. Santiago Iruretagoiena

Erran behar ote dizut, jaun André, nola ibili zen osaba Joanikot hurrengo egunetan, mapa bat hartu hemendik, bertze bat handik, **erregela** eta angelu-neurtzailea eskuan, sukarrak hartua bezala bere kalkuluak egiten, ni haren aldamenean...? Joan Mari Irigoien

Erregela, antza, ez zen nahiko luzea: Tsarra bere hatzaz baliatu zen lerroa luzatzeko, eta, horren ondorioz, San Petersburgo eta Mosku arteko lerroak bihurgune bakarra dauka, Alexandro II.aren hatzaren puntaren forma berbera duena. Iban Zaldua

Korobatea **erregela** luze bat da, hogei oin ingurukoa. Santiago Iruretagoiena

Polizia hori bera ondoko bulegora joan eta **erregela** zabal batekin itzuli da. Agurtzane Juanena

Canson papera; ezabagoma, irasagarra bezain lodia; **erregela** laua; koloretako arkatzak. Jon Muñoz

Egurrezko **erregela** hartu eta esku ahurrean pla jo zuen. Joseba Sarrionandia

Era berean, zumezko **erregelak** finkatzen dira zeharka luzera guztian eta zirkunferentzia osoan. Santiago Iruretagoiena

Erregela horiek burdinazko malguki batzuk izaten dituzte finkatuta eta teklekin lotuta; tekla horiek ukitzen direnean, **erregelak** ere mugitu egiten dira haiekin batera. Santiago Iruretagoiena

Biluzi nendila agindu eta **erregelarekin** jo ninduen polizia luze eta beltzaranaren galdera: [...]. Agurtzane Juanena

Han **erregela** erabiltzen dute zigortzeko. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Logaritmo- **erregelarekin** ateratzen zuelako urdai-saltzaile guztiek. Juan Garzia

Azken datua kalkulu- **erregelan** suzko zifraz idatzirik begitandu zitzaidan: ehuneko 6 nikel, gainerakoa burdina. Juan Garzia

3 araua.

Teofrastok (300 K.a.), Aristoteles maisuaren ikasleak, **erregela** eta norma mordo bat bildu eta prestatu zuen, prognostikak egiteko balio zezakeena. Pello Zabala

Izan ere, halako axioma egiazko eta dudagabe batzuk bereganatu ondoan, silogismoaren eta frogaketaren **erregelak** ikasi eta adimenaren okerrak ekiditeko erak eskuratu eta gero, eta ez lehenago, abia daiteke horrelako gaia ikertzera. Xabier Kintana

Izenda ditzagun **erregelok** "formaldatze gramatikalak". Itziar Laka

Erregelok, corpuseko perpausen arteko egitura-harremanak adierazten dituzte, bai eta corpusetik kanpo gramatikak sor ditzakeen perpaus-kopuru amaigabeenak ere. Itziar Laka

Adimenaren adigaien aplikazioa arrazoimenaren eskemari ez dela era berean objektua beraren ezagutza[...], baizik adimenaren erabilera ororen batasun sistematikoaren printzipioa edo **erregela** besterik ez. Ibon Uribarri

Sentimenak (agerpenaren) formak ematen dizkigu, adimenak, berriz, **erregelak**. Ibon Uribarri

Filosofia transzendentalak, ordea, bereizgarri hau du: adigai hutsean emandako **erregela** erakusteaz gain (edo hobeto, **erregelentzako** baldintza orokorraz gain), aldi berean, a priori erakuts dezakeela hura zein kasutan aplikatu behar den. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren erabilera hipotetikoa, beraz, adimenaren ezagutzen batasun sistematikorantz doa, hau, berriz, **erregelen** egiaren frogarria da. Ibon Uribarri

Xake joko apokaliptiko horren estrategia-kalkulatzaile amerikar batek asmatu **erregela** ez baitugu beharrik ahantzi: bietatik batek irabazten duen ber, biek galtzen dute. Piarres Xarriton

Bere aldetik, *eo, io* bilakatu zen, halaber orokorrak ziren beste **erregela** batzuen arabera. Isabel Arrigain

Oinarri-esakune hauek esperientziak ahalbidetzen dituzten **erregela** gisa balio dute oro har, eta esperientzien aurretik irakasten digute, ez hauen bitartez. Ibon Uribarri

Hirugarren lerroa bigarrenetik eratzen da, IS sinboloa DetI berridatziz (13) gramatikako (ii) **erregelaren** arabera. Itziar Laka

Erregelen ordena funtsezkoa da, eta behar bezala adierazitako gramatika batean hiru ataletan adierazi beharko litzateke, hala nola **erregelak** hautazkoak ala beharrezkoak diren. Itziar Laka

Elementu bakar bat berridatz daiteke **erregela** bakoitzeko; hots, (16) **erregelan**, X sinboloak sinbolo bakarra izan behar du, esaterako Det, edo Aditza, baina ez DetI bezalako sinbolo hurrenkera. Itziar Laka

San Basilek dio, komentuarrentzat egin duen **erregelan**: gogo onez joka zaitezte esku-lanari, ezen Jesusek zer egin du hanbat urtez, baizik ere bere ahidekin eskulanetan akitu eta izertu. Xipri Arbelbide

Egia da, bestalde, balioak egiune aldaezin baten araberakoak direla, jokoaren **erregelaren** araberakoak alegia, eta **erregela** hori partida hasi baino lehen eta jokaldi bakoitzaren ondoren izan badela. Isabel Arrigain

Gisa honetan ematen zuen kazetariak, eskolako maisu orojakile baten tankeran, ezjakinak argitzeko **erregela**: "ibarraren izena, Belagua; ibaiaren izena, Ezka". Iñaki Segurola

Jatorri judaikoko erlijio nagusiak zelaian zeudenean intolerantzia izan zen nagusi, eta ethos indikoa nagusitu zen lekuetan "bizi eta bizitzen uztea" izan zen **erregela**. Iñaki Mendiguren

Erregelak zerbait orokorra dio baldintza jakin batekin. Ibon Uribarri

Ez du hori eragozten handia egin dezakeenak, tipia ere egin dezakeela dioen **erregelak**. Piarres Xarriton

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Gertaera multzo bat **erregela** bakar baten esanetara dagoenean soilik mintza gaitezke legeez. Isabel Arrigain

Forma analogikoa da, beste forma baten edo askoren erara eta **erregela** jakin baten arabera sortua dagoen forma. Isabel Arrigain

Arkitekturaren **"erregela** naturalak". Santiago Iruretagoiena

Erregela arau-emaileak. Xabier Arregi

Itxurapen-maila horietatik sortzen diren egiturak elkarrekin lotzen dituen mekanismoa **'erregela** formaldatzailea' da, liburuan azalduta dagoen eta aurrerago aztertuko dugun berrikuntza tekniko bat. Itziar Laka

Orduan **erregela** morfofonemikoetara jotzen dugu, honela hitz kate hau fonema kate bihurtzen dugularik. Itziar Laka

Kiparsky-ren bidetik esango genuke eransketa **erregela** uherra dela. Lourdes Oñederra

Erregela soziolinguistikoen malgutasuna defendatuko du Wittgensteinek: ez dago **erregela** finkorik, hizkuntzaren helburua edo funtzionamendua azalduko duen **erregela** bakarrik. Askoren artean

Autoan generaman liburuetako bat hartu, Ali Bey-ren Viaje por Marruecos klasikoa, eta Koranaren bost **erregela** oinarrizkoei eta beste erlijio kontu batzuei eskainitako atala kontsultatu nuen. Bernardo Atxaga

Maimonek, berriz ere, exegesi ororen oinarrizko **erregela** hau azpimarratu nahi du. Xabier Kintana

Vitruviok arkitektura zenbakizko arau eta **erregela** bidez transmititzeko zuen obsesio hori. Santiago Iruretagoiena

Taula baten begiratuz, **hiruko erregela** medio, eguneko intsolazioa zenbatekoa den kalkulatu. Pello Zabala

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Osagai-egiturari dagokionez, gramatika batek XÆZ formako **erregela**-hurrenkera dauka. Itziar Laka

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kortesi **erregelei** eta bertzelako ordenantzei. Joan Mari Irigoien

Era berean, ingelesaren gramatika bat esaldi corpus mugatu batean oinarritzen da (behatutako gertakariak), eta gramatika-**erregelak** eskaintzen ditu (arauak), ingelesaren fonema, osagai, eta abarren antzeko izaki hipotetikoen arabera sortuak.Okerbidera eraman dezakeen gai bat ezabatu behar denean, ez dago bera konjugazio-**erregela** baten bidez baliogabetzerik. Xabier Kintana

Horietatik dedukzioak egiteko inferentzia-**erregela** batzuk zehazten dira eta, horrela, gure logikaren teoremak deduzituko dira. Askoren artean

Teoria, sistema formala da (partzialki) interpretatua, non bi kontzeptu-mota aurkitzen ditugun (behaketazkoak eta teorikoak) eta horiek modu egokian lotzen dituzten enuntziatu bereziak, egokitzapen-**erregelak** deituak. Askoren artean

7 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Era berean, zenbait osagai-egitura **erregelak**, aditz sintagma honela aztertuko dute, [...]. Itziar Laka

Kapituluko azken pasarteetan ohartarazi dugunez, osagai-egitura **erregelek** hizkuntz egitura eta "itxurapen-maila"ren kontzepzio guztiz ezberdin batera garamatzate. Itziar Laka

8 erlijio ordena baten araudia.

Bera San Damiango etxe xaharrean pobre eta gaixo bizi zelarik, bere **erregelaren** arabera bizi nahi zuten moja klarisen komentuak zabaltzen zihoazen ordurako. Pello Zabala

1253ko abuztuaren 10ean, hil bezperan justu, hartu zuen Klarak bere **Erregelaren** berrespena. Askoren artean

Erregelak nolabaiteko autonomia bereganatzen du: aurrerantzean **Erregela** ez da, ordura arte bezala, bizitzari loturiko etengabeko sorkuntza-prozesu baten emaitza izango, baizik eta bizitza jarriko da **Erregelaren** mende eta haren agindura. Askoren artean

Horregatik guztiagatik, ahal dudan neurrian erregutzen diot anai H., neure Ministro jeneral jaunari, **Erregela** hutsik egin gabe betearaz diezaiela guztiei. Askoren artean

Anaia txikien **Erregela** eta bizimodua hauxe da: Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelio santua betetzea, obedientzian, berenik gabe eta kastitatean biziz. Elizen arteko biblia

Hamabi kapitulutan -Lehen **Erregela**-ren erdiak justu- eta lehenengoan baino askoz ere estilo juridikoagoa erabiliz, anaia txikiaren nortasuna baieztatzen du Bigarren **Erregela**-k ere, Lehen **Erregela**-ko intuizio nagusiak berretsiz: Jesusi jarraitzea anaiartean Elizaren baitan. Askoren artean

Bizantziar Inperioa berreraikitzeari ekin ziotenean, material egokiagoak aurkitu zituzten Moisesen Legean Justinianoren *Corpus Iuris*-ean baino, eta Italian etorkizunaren itxaropena ez zegoen *Corpus Iuris* hartan San Benediktoren **erregelan** baizik. Iñaki Mendiguren

2. **Erregela**, buldaduna deitua -Honorio III.a Aita santuak 1223ko azaroaren 29an bulda bidez baietsi zuelako deitzen zaio horrela-, Anaia txikien behin betiko **Erregela** da. Askoren artean

San Benito Nursiakoa beneditar ordenaren sortzailea izan zen, eta **erregela** monastikoaren egilea: ora et labora ("errezatu eta lan egin"). Fernando Morillo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adimenaren erregela (5); **aita santuak erregela** (4); **anaia txikien erregela** (8); **anaien erregela** (3); **arabera erregela** (3); **baina erregela** (4); **bat erregela** (3); **bere erregela** (12); **beren erregela** (3); **berretsitako erregela** (3); **beste erregela** (14); **beste erregela bat** (6); **bigarren erregela** (4); **bitartez erregela** (3); **da erregela** (8); **da gure erregela** (3); **diren erregela** (3); **dituen erregela** (5); **duen erregela** (12); **duten erregela** (3); **edo erregela** (6); **emandako erregela** (3); **eremitorioetarako erregela** (5); **erregela baino** (3); **erregela bat** (26); **erregela baten** (26); **erregela baten arabera** (17); **erregela bati** (11); **erregela bati jarraiki** (6); **erregela bati menperatzen** (3);

erregela batzuk (6); **erregela bera** (4); **erregela bere** (3); **erregela berri** (4); **erregela berri bat** (3); **erregela besterik** (3); **erregela besterik ez** (3); **erregela bulda** (4); **erregela bulda gabea** (3); **erregela buldaduna** (4); **erregela da** (6); **erregela den** (4); **erregela edo** (5); **erregela eta** (53); **erregela eta bizimodua** (8); **erregela eta doktrinaren** (3); **erregela eta konpasa** (4); **erregela eta testamentua** (3); **erregela ez** (5); **erregela formaldatzaileak** (3); **erregela formaldatzaileen** (3); **erregela gisa** (10); **erregela hau** (16); **erregela hauek** (7); **erregela hauen** (3); **erregela honek** (5); **erregela honen** (8); **erregela honetan** (3); **erregela hori** (11); **erregela hori betetzera** (4); **erregela horiek** (6); **erregela horien** (3); **erregela horren** (4); **erregela idatzi** (4); **erregela idatzi zuen** (3); **erregela jakin** (3); **erregela k** (4); **erregela ko** (5); **erregela morfofonemikoak** (6); **erregela morfofonemikoek** (5); **erregela onartu** (6); **erregela orokor** (6); **erregela orokorrak** (4); **erregela talde** (3); **eta erregela** (37); **eta lehen erregela** (4); **frantziskoren erregela** (3); **gure erregela** (3); **haien erregela** (3); **hemen erregela** (4); **hiru erregela** (6); **hori erregela** (3); **lehen erregela** (16); **lehen erregela ko** (5); **oinarrizko erregela** (4); **ondoko erregela** (5); **orduan erregela** (3); **santuak erregela** (4); **sintesiaren erregela** (3); **txikien erregela** (8); **txikien erregela eta** (5); **zeinari erregela** (3); **zeinari erregela baten** (3); **zen erregela** (4); **zerbait erregela** (3); **zituen erregela** (3); **zuen erregela** (6); **zuten erregela** (4)

adimena erregelen (4); **adimenaren erregelen** (4); **baldin eta erregelan** (4); **bere erregelako** (5); **bere erregelaren** (3); **beste erregelarik** (3); **bezalako erregelak** (3); **bezalako erregelak biltzen** (3); **dut erregelaren** (3); **erregelak agintzen** (3); **erregelak biltzen** (5); **erregelak biltzen ditu** (4); **erregelak dioenez** (3); **erregelak ere** (4); **erregelak eta** (9); **erregelak ez** (4); **erregelan esaten** (8); **erregelan esaten denez** (5); **erregelan ez** (3); **erregelan hitzeman** (4); **erregelan hitzeman genuen** (4); **erregelan idatzi** (4); **erregelarekin eta konpasarekin** (3); **erregelaren arabera** (19); **erregelaren arabera bizi** (3); **erregelaren aurretik** (5); **erregelaren bat** (3); **erregelaren bitartez** (3); **erregelaren obserbantzia** (3); **erregelaren ondotik** (4); **erregelaren onespena** (3); **erregelatzat balio** (4); **erregelaz eta** (5); **erregelaz eta konpasaz** (5); **erregelei jarraiki** (5); **erregelen ahalmen** (3); **erregelen ahalmen gisa** (3); **erregelen arabera** (8); **erregelen araberako** (4); **erregelen bitartez** (3); **erregelen menpean** (4); **erregeletan ageri** (3); **eta erregelak** (3); **eta erregelan** (9); **eta erregelan hitzeman** (4); **eta erregelaren** (11); **eta erregelatzat** (3); **ofizioa erregelaren** (3); **ofizioa erregelaren arabera** (3); **zuen erregelaren** (3); **zuten erregelatik** (4)

---

erregeladun *iz* erregelaz hornitua dena.

Portugaleko Coimbratik Gaztelara itzuli-eta, orduan haren erreinuak gobernatzen zituen gure Errege Jaunaren arreba Erregina andereak agindurik, ikuskatu nituen lehenik Kalonje **Erregeladunen** bi komentu ospetsu, jende zuzen guztien goresmenekin. Piarres Xarriton

Erregeladunak oihu egin dit atzetik: [...]. Agurtzane Juanena

---

erregelamendu *(orobat **erreglamendu** g.er., **erreglamentu** g.er. eta **erregelamentu** g.er.)* **1** *iz* arautegia, eskuarki lege bat betearazteko edo korporazio edo zerbitzu baten funtzionamendua gauzatzeko eratzen dena.

Ez dugu gehiago erranen hemen ez nahiz mina agertu edo zabaldu bainan hauxe bakarrik: batetik **erregelamenduak** behar direla baitezpada beren legeekin, eta hau bigarrenik, denek edo halatsu sendi dutela hautsi-mautsi on baten beharra. Herria

Bergarak aurreratu duenez, genero neurketa hori lege aurreproiektuetan, **erregelamentuetan**, diru laguntzetan eta oposaketetan aplikatzeko aukera aztertzen ari dira. Berria - Euskal Herria

Bestalde, ariko bide dira lege eta **erregelamenduen** zorrozten, aireko guziek, Charter ala ez, segurtamen bertsua eskain diezoten ibiltzaileari. Herria

Caminok erran du zoin beharrezkoa den pilotan ari diren guzientzat **erreglamendu** guzien begiratzea eta azpimarratu du denek behar dutela asurantza bat hartu. Herria

Holakoetan, segitzeko on ez denak partida gal, **erregelamenduaren** arabera, legea lege. Herria

Horretarako, unibertsitateko plantilla osoa hartuko da, onartutako lanpostuen zerrenden arabera, lanpostu hutsak barne direla, **erregelamenduz** ezarritako salbuespenak salbuespen. Berria - Euskal Herria

Batzorde horren zeregin zehatzak eta osaketa geroago zehaztuko dira, «**erregelamendu** bidez». Berria - Kultura

2 ***erregelamenduzko*** *izlag* erregelamenduaren araberakoa.

Ribaforadako Udalak, 1997ko urtarrilaren 20an egin osoko bilkura arruntean, ondotik ematen diren ordainarazpenak onetsi zituen **erregelamenduzko** quoruma zuela. Aingeru Epaltza

Nonbait behar zuen, hala ere, **erregelamenduzko** armak, [...] traje zimurtuaren zoko-moko ezkuturen batean jagole. Aingeru Epaltza

Aitaren **erregelamenduzko** pistola zaharra. Aingeru Epaltza

Ripodas ez zuan esku hutsik etorri, bere arma ere ekarri zian aldean, **erregelamenduzko** pistola militar bat, bere aitari ebatsia iduriz. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erregelamendu bidez (3); **erregelamenduzko pistola** (3)

---

erregelamentario *(corpusean **erreglamentario** soilik)* *izond* erregelamentuaren araberakoa.

Partidu ugari jokatzen ziren aldi berean, zelai **erreglamentarioan** bat, txikian beste bat, porteria bakoitzeko partidu bana batzuetan. Joseba Sarrionandia

Erreglamentarioa deitzen zen futbol zelaiak hartzen zuen espaziorik hoberena, metalezko porteria saredunekin. Joseba Sarrionandia

---

erregelatu, erregela(tu), erregelatzen du *ad* erregelaren pean ezarri.

Gizarteko gerlak, ordea, apezek kudeatu behar dituzten Jainkozko ontasun izpiritualen arabera **erregelatzen** dira fededun herrien artean eta, beraz, apezei doakie horien guztien antolatzea eta gerla zuzenei buruz eragitea. Piarres Xarriton

---

erregeleta *iz* xafla.

Erregeletak, batzuek *bucculae* (ezpainak) deitzen dituztenak, eta erretenaren ezker-eskuin erantsita joaten direnak, 19 zulokoak izango dira luzean, eta zulo bat izango dute altueran eta lodieran. Santiago Iruretagoiena

Beste bi **erregeleta** iltzatuko dira eta horien gainean tornua jartzen da; horien neurria hiru zulo luzean eta zulo-erdi zabalean izango dira. Santiago Iruretagoiena

---

erregenahi *iz* erregetza lorzea helburu duen pertsona.

Une hartan bertan iritsi zen don Karlos Borboikoa, **erregenahia**, jeneral karlisten estatu nagusiaz eta Vendéeren aldeko zenbait frantsesez inguratua. Koro Navarro

Bidasoaren bi ertzetan, bai Espainiako mugan bai Frantziakoan, oso gogo beroz hartzen zen **Erregenahiaren** kausa. Koro Navarro

Donostiara dator Karlos Maria Isidro **erregenahi** karlista. Askoren artean

---

erregeneratu, erregenera, erregeneratzen du *ad* birsortu; onbideratu.

Baliabideak emanez gero, gorputzak birsortzeko edo **erregeneratzeko** ahalmena du. Berria - Harian

Geografiak egiten duen arima ezin da **erregeneratu** lehenbizi geografia erregeneratzeke. Joxe Azurmendi

Mila bider madarikatu dut neure egoera, baina aitortu behar dut gaixotasunak **erregeneratu** egin ninduela. Herria

Liberalek hain zuzen **"erregeneratu"** beharreko jende baldar, elizaren eta tradizioen jopu, ezjakin, trauskil, apatikoa kausitzen dute herria. Joxe Azurmendi

Gaztelako herrixketan, paisaian, historian, literaturan, arima espainolaren bila eta bila dabiltzanak, hura **erregeneratzeko** lehian dabiltza denak. Joxe Azurmendi

---

erregeneratzeke *adlag* erregeneratu gabe.

Arazoa da, erreforma horietarako asmoz hasi bai eta, asmoak asmo, gaitzaren analisiari ekiteko hartu den tresneria intelektualak berak [...] nahitaez gure ibilaldia kalezaku determinista batera ez al duen kondenatzen: geografiak egiten duen arima ezin da erregeneratu lehenbizi geografia **erregeneratzeke**. Joxe Azurmendi

---

erregenerazio *iz* erregeneratzea.

Hauek, batez ere, bizkarrezur muineko zelulen **erregeneraziorako** dira onak. Berria - Gaiak

Printzipio ezezagunak, demokraziaren etorrera, gizarteen **erregenerazioa** hartu zituen ahotan, dena hain modu bitxian nahaspilatuz, ezen Lisak sorbaldak jaso baitzituen, ulertu gabe. Karlos Zabala

Espainiaren **erregenerazioa** berriro bere baitara -arimara- itzuli eta horren berezko indarretan biziberritzean soilik etzango da. Joxe Azurmendi

Izpiritu eta jeinu nazionalaren araberako filosofia liberal batek [...] erreforma, **erregenerazioa** eta bakea, dena ekarriko du. Joxe Azurmendi

Badirudi ez dela posible iraganaren ahanztura pragmatiko bat, **erregeneraziorako** tarte gutxi geratzen dela, susmo txarren kutsu hori ezin daitekeela guztiz aratz, xahu eta purifikatua laga. ELAren ustez, HZ baliogabetzeak erakusten du Espainian izan den gobernu aldaketak ez duela ekarri «beharrezkoa zen **erregenerazio** demokratikorik». Xabier Mendiguren Elizegi

---

erregenerazionismo *iz* higikunde ideologikoa, nazioaren izate eta egoera konkretua aztertzen duena, hura erabat erregeneratzeko.

Baina -dio eskolaketa programa krausista ez askietsiz: Ortega-ren **erregenerazionismoaren** espezifikoa hau da- herri eta auzoetan eskolak zabalduz ere ezingo da Espainia berria eraiki: [...]. Joxe Azurmendi

---

erregenerazionista *izond/iz* erregenerazionismoarena, erregenerazionismoari dagokiona.

1903an "Alma Española" izenburuarekin aldizkari **erregenerazionista** bat sortu da Madrilen, hor Pérez Galdós, Unamuno, Maeztu, Baroja, Pérez de Ayala-k kolaboratu dute. Baina paradoxalki, herriaren arima paisaiari lotzean, **erregenerazionistei** ateratzen zaiena da, erregenerazio posiblerik gabe uzten dutela hura betiko. Joxe Azurmendi

Hori da arazoaren arazoa, eta ez **erregenerazionisten** beste nolanahiko arrazoiak, Costa bera barne. Joxe Azurmendi

---

erregeorde *(orobat **errege-orde** g.er.)* *iz* erregearen ordez gobernatzen duen agintaria.

Jai honen izenak Asuero persiar erregearen **erregeorde** Hamanek Persiako juduak suntsitzeko data aukeratzeko egin zuen zozketa gogoratzen du. Koro Navarro

Eskualdeetako buruzagiak, **erregeordeak**, gobernariak eta errege-funtzionarioak juduen alde jarri ziren, Mardokeoganako beldur-ikaraz. Elizen arteko biblia

Francisco Cisneros, Juan Sepulveda, Armand Richelieu, Jacques Bénigne Bossuet bezalako kardinale, apezpiku, **erregeorde**, gobernadore edo teologo ilun, oker eta leun. Piarres Xarriton

Erregeordea bera zuen aitzinean, Alonso Idiakez Butroe-Muxika, Aramaioko kondea. Aingeru Epaltza

Aitzinazaleen matxinadek atzerrira behartu zuten Maria Kristina **erregeordea** 1840an, eta orduan Esparterok hartu zuen boterea. Koldo Izagirre

Onartu berria zuen Nafarroako **erregeorde** Alonso Idiakez Butroe-Muxikaren proposamena, 1592ko urtarril hotz hartan, Iruñean. Aingeru Epaltza

Goako **erregeordeak** partikularrei ematen zizkien pribilegio esklusiboak. Iñaki Iñurrieta

Heldu zen prozesionea Urkabeko Plazarat; jarri zen tribunan, ikuskizunaren presiditzen, **erregeordea**; jarri ziren ondoan bertze autoritate zibilak, baita Urbiaingo alkatea eta herri etxeko karguak ere. Joan Mari Irigoien

Lehen hilaren hamahiruan erregearen idazkariei dei egin eta Hamanek agindu bezala idatzi zituzten gutunak, eta **erregeorde** guztiei, eskualdeetako gobernariei eta herri guztietako buruzagiei igorri zizkieten, nori bere eskualdeko idazkeran eta herriko hizkeran. Elizen arteko biblia

Hala nahi izan zuen eta hala erdietsi ere zuen, **erregeordearen** fabore berezi baten bidez, bere bi semeek -gure aitak eta osaba Joanikotek- Parisen ikas zezaten. Joan Mari Irigoien

Kementsu agertuz gero, litekeena da Ingalaterrako erregeak erresuma ttiki bat ematea eta zu **erregeorde** izendatzea. Patxi Zubizarreta

---

erregeorderri *iz* erregeordearen agintaritzapean dagoen lurraldea.

Zaldizko gerra-talde mugikor bihurtu zituen Espainia Berriko espainiar **erregeorderriaren** eta azkenean Estatu Batuak izan ziren kolonia ingelesen mugez handiko Lautada Handietan zeuden indiar tribuak. Iñaki Mendiguren

---

erregeordetza *(orobat **errege-ordetza** g.er.)* *iz* erregeordearen kargua eta agintaritza.

Hona hemen **erregeordetza** osatzen zutenak: Urkamendira ez baizik eta Salamancara, Nafarroako **erregeordetzaren** kontura. Iñaki Iñurrieta

Inork galdegin gabe, kalkuluetan abiatu zen, gisa horretako ikasketa batzuek zenbat erreal eramanen ote zioten **erregeordetzaren** kutxa behar baino hutsagoari. Aingeru Epaltza

Hona hemen **erregeordetza** osatzen zutenak. Iñaki Iñurrieta

Peruko **erregeordetza** espainiarra. Iñaki Mendiguren

Espainiak Erdialdeko Amerikaz egin zuen konkistaren kasuan, adibidez, ongi uste izan zitekeen atzerritar ordezkoari -Espainia Berriko espainiar **erregeordetzari**- Mexikoko Errepublikak [...] lekua hartu zionean, ertamerikar gizartea Mendebaldeko gizartearen gorputz sozialera asimilatzea atzeraezinezko moduan egin zela. Iñaki Mendiguren

---

erregepittitta *iz* erregetxoa.

Haurrak ekartzen dira gozatuak izateko eta ez ongarri metaren gainean goseak hilik dagoen txori **erregepittittaren** pare, bere buruarekiko disgustu goiztiarrekin hausnarrean abandonatzeko. Itxaro Borda

Batera baitzen ororen buru: batek hartuko zuen segida eta beste anai-arrebak oinarrizko habiatik hegaldatuko ziren, **erregepittitta** txepel. Itxaro Borda

---

erregetasun *iz* errege izateko nolakotasuna.

Aita sainduak balu libertate hori bere karguko egitekoetan, ez luke batere **erregetasun** beharrik. Xipri Arbelbide

Ez uste izan zonbeitek amestu bezela, **erregetasun** tenporaleko hori Aita Sainduaren abantailetan dela eta haren goresteko bezala. Xipri Arbelbide

---

erregetiar *izond/iz* erregearen aldekoa; errepublikaren aurkakoa.

Beharbada, Napoleon III eta Eugenia de Montijo bikote **erregetiarra** gehiagotan ere itzuli zelako. Txillardegi

Baina hemen bozak izan zirelarik, Etcheverry **erregetiarra** eta "Eskualdunak" sustengatzen zuena, presentatu zen eta ez pasatu. Herria

Gizona bunetarekin sortu zen, eguneroko urratsetan nehoiz ez zuen kitatu eta pariatzekoa zen garaitezintasunezko seinale **erregetiarra** hobira eta Josafateko Soroetara eramango zuela. Itxaro Borda

Zioten euskaldunak errepublikar izan zitezkeela, Ameriketan apezpiku guziak errepublikarrak zirela, ez zela **erregetiarrik** han, eta Europako Euskal Herrian ere izaiten ahal zela errepublikar ona. Herria

Horra non Chapalangarra jenerala, soberaxko hurbildurik, tiro batez aurtikitzen duten, hil-hotza, izkuturik edo gorderik zeuden **erregetiar** batzuk. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Elektrizitatezko lanpek, [...] zurbil bihurtzen zituzten, beren argi nakaratu, misteriozko eta **erregetiarren** pean, gas sareak, gas zikin gaiztozkoak, eta kolorezko kristalezko lore-sortak. Josu Zabaleta

---

erregetto *iz adkor* erregetxoa.

Xutik ezarri gogo dutena, ez Frantzia ez Amerikaren gizona baina auzoko Senegal eta Maliar podoreen gisako podore bat, berria, ez dadin berriz ikus ere lehenagoko betiko **erregettoen** pareko bat baina erreferendum eta konstituzio berrien pean izanen den podore berri bat. Herria

---

erregetu, errege(tu), erregetzen **1** da/du *ad* errege bihurtu.

Beren semea, Carlos, Viana-ko printzea, ez da sekulan **erregetuko**, zeren eta bere aitak ez baitio uzten eskubide hori. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eta huna nola **erregetua** den: Egun batez xori eta hegaztin guziak hasi omen ziren apostuka zoin gorago altxa airetan; gorena altxatuko zena guzien errege izanen zela. Patziku Perurena

2 (era burutua izenondo gisa)

Arrais-Orantza horrek, Bizkai aldeko Buzkantza hitza ekarri dit burura, eta gure eskekantak, eta, nola ez, baita gure Santxopantza **erregetu** honen auzia ere. Patziku Perurena

Horra nere "babamutil **erregetuak"**, horra nere "chicos rey de la faba" mututuak. Patziku Perurena

Zortzi orenak arte ez dut nehor hartuko, ezta zaldun **erregetua** bera ere: ez du behar adina buru hain eginkizun handirako. Jon Muñoz

---

erregetxo **1** *iz adkor* errege xumea.

Duela orain bost hilabete Kaston (Flosse) Polinesiako **erregetxoak** galdu zituen hauteskundeak, gutiz behar bada, bainan galdu: 28 zituen alde, 29 kontra aldiz. Herria

Erregetxo bat bezala bizi zen ugarte haietan, eraikiz palazio edo jauregi eder bat lehendakariarentzat, ukanez zerbitzari hanitz, beretzat eta familiarentzat etxe batzu diru publikoarekin ordainduak. Herria

Ni horrek nau kezkatzen ez baigira gehiago Errepublikan bizi, **erregetxo** bat dugularik bere botere guziekin. Herria

Pausatu zen duela 30 urte, zenbeit xanpaña botoila hustu zirela egun hartan, euskaldunek bereziki ospatzen zutela **erregetxo** horren erreinuaren bururatzea. Herria

Egia da kasik lau urte iragan direla, higatu dela Errepublikako **erregetxoa**. Herria

2 txori txikia, txepetxaren antzekoa tamainaz eta eitez, pinuetan eta bizi dena*(Regulus regulus* eta *Regulus ignicapillus)*

Beste paraje batzuetan, berriz, Erregeen bezperako diru-eskean, kaiola baten barruan **erregetxoa** daramate preso. Pello Zabala

3 *basa erregetxo* ik **basaerregetxo**.

---

erregetza **1** *iz* erregeren duintasuna; errege izatea; erregeren agintaritza. ik**erregetasun; koroa**.

Egin dezala Jainkoak Salomon zu baino ospetsuago, eta haren **erregetza** zurea baino handiago! Elizen arteko biblia

Badakigu, izan ere, zurea dela indarra, zurea **erregetza**, eta erregeen Erregeak zu egin zaituela erregina eta andre bertute guztien gainetik. Askoren artean

Hark eraikiko dit etxea eta nik betiko sendotuko diot **erregetza**. Elizen arteko biblia

Ez duzu bete Jaunaren, zeure Jainkoaren, agindua; bete izan bazenu, betierean sendotuko zizun Jaunak Israel herrian zeure **erregetza**. Elizen arteko biblia

Horregatik, Jaunak hilarazi egin zuen, eta Jeseren seme Davidi eman zion **erregetza**. Elizen arteko biblia

Alabaina, **erregetza** niri kendu eta nire anaiari eman diote, harentzat baitzuen Jaunak erabakia. Elizen arteko biblia

Erregetza hartzeko eskatu zioten Cromwel garaitezinari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nobletasunak **erregetza** ematen zien; eta bertuteak, buruzagitzat hartzen zituzten hainbat boluntario atzean zituztelarik, maiordomoaren boterea ematen zien. Iñaki Iñurrieta

Erregea degradatu nahi, eta **erregetza** bera degradatu zuten. Iñaki Iñurrieta

Diamantea **erregetzako** koroa batean jar zezatela agindu zuen, baina baldintza zorrotz batekin: koroa hura beti emakumezkoentzat izango zela -erregina edo printzesa-, inoiz ez gizonezkoentzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ostargi-belar horiak, lore ederra izateaz gain, badu, bestalde, esanahi berezia frantsesentzat eta Frantziako **erregetzarentzat**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erregetzaren eta maiordomotzaren nahastea. Iñaki Iñurrieta

Betiere hobe **erregetza** txarra, errepublika okerragoa baino... J.M. Olaizola "Txiliku"

Moskoviako Elisabeta enperatrizaren hogei **erregetza**-urteak. Juan Martin Elexpuru

Honekin nabarmen geratu zen pentsamendu ilustratuak administrazio-esparruetan zuen eragina, Carlos III.aren **erregetza** garaian. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aren erregetza garaian (3); **beraren erregetza** (4); **bere erregetza** (11); **bere erregetzaren** (3); **betiko erregetza** (3); **erregetza betiko** (3); **erregetza ematen** (3); **erregetza eta** (9); **erregetza ez** (11); **erregetza ez da** (6); **erregetza garaian** (4); **erregetza gero** (3); **erregetza gero eta** (3); **erregetza hots** (5); **erregetza izan** (3); **erregetza kendu** (5); **erregetza noiz** (3); **erregetza noiz iritsiko** (3); **erregetza zuen** (4); **erregetzaren berriona** (8); **erregetzaren berriona hots** (5); **erregetzaren eta** (3); **erregetzaren misterioak** (4); **erregetzaren misterioak ezagutzea** (4); **eta erregetza** (9); **eta haren erregetza** (3); **eta jainkoaren erregetza** (5); **eta jainkoaren erregetzaz** (3); **haren erregetza** (12); **haren erregetza ez** (4); **haren erregetza gero** (3); **haren erregetzaren** (3); **hartu zuen erregetza** (3); **jainkoaren erregetza** (37); **jainkoaren erregetza hots** (5); **jainkoaren erregetza noiz** (3); **jainkoaren erregetza zuen** (3); **jainkoaren erregetzarekin** (9); **jainkoaren erregetzaren** (18); **jainkoaren erregetzaren berriona** (8); **jainkoaren erregetzaren misterioak** (4); **jainkoaren erregetzaz** (6); **nire erregetza** (3); **parabola jainkoaren erregetzarekin** (3); **zaizue jainkoaren erregetzaren** (4); **zeure erregetza** (5); **zuen bere erregetza** (3); **zuen erregetza** (3); **zure erregetza** (9)

---

erregetze *iz* errege bihurtzea.

Hondarribian emateari dagokionez, gogoratu behar da hiri hau Nafarroako portu bat zela eta handizki ospatu gogo dutela aurten Antso Handia **erregetzearen** 1.000. urteurrena. Berria - Kultura

---

erregezale *izond /iz* erregearen aldekoa.

Hildakoak eta sufrimenduak gogoratzeko aitzakiaz, propaganda militarista, gerrazale eta **erregezale** zikina egiten da! Koldo Biguri

Nik neuk, euskal foruzalea bai, baina oso **erregezale** ez naizen joxemaritar honek, oso hotz hartzen nituen errege-famili arteko gorabehera horiek. Txillardegi

Guareschi, berez, eskuindarra, **erregezale** eta antikomunista izan zen, antikomunista amorratua gainera. Koldo Biguri

Legitimista eta **erregezalea** zenez, Cromwellen ustezko errepublikaren diktadura puritanoaren aurka, ez zituen konbentzitu. Esteban Antxustegi

-Boluntario **erregezaleak** -esan zuten besteek. Koro Navarro

Pariseko errefuxiatu **erregezaleak** [...] beraz, Ingalaterrara itzultzea erabaki zuen. Esteban Antxustegi

Ingalaterran izan zen Parlamentuzaleen eta **Erregezaleen** arteko gerra zibila aipatzen du. Xabier Olarra

Alde batean, **erregezaleak** baitzeuden, eta bestean Han hil omen zuten garai batean zergak kobratzera etortzen zen **erregidorea** .errepublikazaleak. Felipe Juaristi

Errusiako Sinodo Santuko apezpiku eta popeak ez zeuden oso gustura San Petersburgora etorri eta agintearen goren gradura iritsi zen siberiar baldan eta lizun harekin; politiko **erregezale** eskuindar gehienak ere ez ziren oso pozik etorri berriarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eskoziar garaituak, **erregezale** porrokatuak, eliza erreformatu presbiterianokoak, katolikoak eta irlandarrak elkartu egin ziren [...] eta Charles II.a -lepoa moztutako erregearen semea- izendatu nahi izan zuten errege. J.M. Olaizola "Txiliku"

Herrian **erregezale** asko dago oraindik. Felipe Juaristi

---

erregezalekeria *iz* erregezalearen jokabide makurra.

Erregezalekeria hauek gero eta irenskaitzago zitzaizkidan. Txillardegi

---

erregezko ik **errege 5**.

---

erregidore *(orobat **errejidore**)iz* udalbatzako kidea.

Ehunki lakatzez egindako janzki iluna zen, euskaraz "kapusai" deitu gisakoa, eta bestetan beste, Erronkari aldean, alkate eta **erregidoreen** ohiko jantzi izateraino errotu zena. Patziku Perurena

Erregidoreek hiriaren giltza gaztelarraren eskuetan uztean, aitatxiren aitaordea ez zen uzkurrena izan garaileak iufaka eta txaloka agurtzen. Aingeru Epaltza

Han hil omen zuten garai batean zergak kobratzera etortzen zen **erregidorea** . Arantxa Iturbe

Eskolara bidean, Grandchamps-eko lorezaina zela jakin nuen, bueno... **"erregidorea"** beraren esanean. Jesus Mari Mendizabal

Maiorazkoa, Luis, etxeko ondasun eta agintearekin geratu zen, eta, horrez gain, **errejidorea** izan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erregimen *(orobat **errejimen** g.er.)* **1** *iz* estatu edo komunitate bat gobernatzeko edo administratzeko era; jarduera bat zuzentzen duen sistema.

Espedizioaren helburua Machado diktadorearen **erregimena** behera botatzea da. Edorta Jimenez

Kerenskyren **erregimena** porrot hutsa izan zen, lastorik gabe adreiluak egiteko zereginaren zama baitzuen: hau da, gobernu parlamentarioa egitea, horretarako klase ertain sendo, gaitu, oparo eta eskarmentaturik izan gabe. Iñaki Mendiguren

Denbora gutxi neraman Triesten, baina nahikoa Mussoliniren **erregimenak** eragindako zentsurak eta hitz egiteko beldurrak estali ezin zuena ikusteko. Anjel Lertxundi

Washingtonen Francoren **erregimena** onesteko gertu ziren. Berria - Kultura

Uste duzu Estatu Batuek Espainiako **erregimena** sostengatuko dutela? Josu Landa

Perry komodoroaren eskoadroia Japoniaren uretan K.o. 1853an agertu eta hamabost urteren buruan, ez zuten bakarrik Tokugawa **erregimena** eraitsi, honek huts egin zuelarik egoerak eskatzen zuen mailan egoten; haren lekuan beste **erregimen** bat, goitik beherantz mendebaldartze-mugimendu orokor bat abiarazteko gauza zena. Iñaki Mendiguren

Truke finkoko **erregimen** batean ezinezkoa baita nazio mailan finantza-liberalizazioarekin adostuko den diru-subiranotasunik bideratzea. Koro Navarro

Truke-tasa malguen **erregimenaren** berezko egongaiztasuna. Koro Navarro

Autonomoen **Erregimenaren** gutxieneko kotizazio oinarria nahi du EHNEk, baina egun nekazariek duten **erregimeneko** %18,75 tasaren azpitik. Berria - Ekonomia

Kontraesan batzuk aurkitzen dira proposizioen edo asertzioen maila hutsean, ahalezkoak egin dituen enuntziazio-**erregimenari** inolako eraginik egin gabe. Xabier Arregi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erregimen Zaharraren erorketa argi da noiz gertatu zen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan: 1789an. **Erregimen** Zaharraren aurka dagoelako, haren despotismo, bortxakeria eta hilketak ezin dituelako ikusi. Berria - Kultura

Izan ere, Frantziako Kode Zibila zerbait bada, aurreko **erregimen** politikoaren lege haustura da. Andres Urrutia

Mussoliniren **erregimen** faxista Italian; eta Hitlerren **erregimen** nazional sozialista Alemanian. Iñaki Mendiguren

Erregimen komunistaren garaian Errumaniako literatur kritikaririk irakurriena izan zen Duvrescu. Iban Zaldua

Erregimen frankistaren aurkako borrokan. Leninen alderdi bakarreko **erregimen** diktatorialaren arrakasta. Juan Kruz Igerabide

Erregimen militarrak «barne gerra» zegoela argudiatu izan du atxiloketak justifikatzeko. Berria - Mundua

Nazio berriaren fundatzaileak -beste Kemal bat, Mustafá Kemal Ataturk-, kalifatoaren ordez **erregimen** presidentzialista ezarri zuen, alfabeto latinoa jarri eta emakumeei legearen aurreko berdintasuna onartu. Fernando Rey

Berezitasun batek, ordea, eginkizun garrantzitsua beteko du geroko bilakaera ekonomikoan, **erregimen** feudalaren beheraldia hasia denean. Koro Navarro

Japonia eta Txinako mendebaldartze-mugimenduak biak aurkitu ziren bertako **erregimen** ekumeniko ongi ezarria bukatu eta ordezteko zeregin ikaragarriaren aurrean. Iñaki Mendiguren

Erregimen inperialaren laguntzaile leialen koloniak –solda duak zerbitzu aktiboan, milizianoak, beterano kargugabeak edo zibilak izan daitezkeenak- edozein komunikabide-sistema inperialen osagai dira. penintsulan bostehun urteko **erregimen** musulmana ezarri zuten. Iñaki Mendiguren

2003. urtean gizarte segurantzak pilota enpresek euren langileei **erregimen** orokorreko kotizazioa ordaindu behar zutela agindu zien. Berria - Kirola

Lasagabasterri erantzunez helarazitako informazioan dioenez, 386 preso daude **erregimen** itxian. Berria - Euskal Herria

Oso gutxi dira Hego Euskal Herrian **erregimen** irekian dauden presoak. Berria - Euskal Herria

Autonomoen **Erregimenaren** gutxieneko kotizazio oinarria nahi du EHNEk, baina egun nekazariek duten **erregimeneko** %18,75 tasaren azpitik. Berria - Ekonomia

Irakek ez du inoiz **erregimen** justu bat ezagutu. Berria - Harian

Espainiak bere Iraultza deitu ohi dena abiatu zuenean, erresuma zaharrean ez zen gelditzen Antzinako **Erregimenik** iraultzeko: Errege familia Baionan zegoen, lurralde osoa Iraultzaren soldadu frantsesek okupatua, eta Cadizko hiria setiatua. Joxe Azurmendi

Espainiar hiri-estatu kolonial horiek atzerriko **erregimen** arrotzaren antolaketa administratibo eta judizialerako zelula gisa balio izan zuten. Iñaki Mendiguren

Atzerriko otomandar **erregimenaren** pean greziar komunitate kristau ortodoxo menderatua ere neurri batean deserrotua izan zen bere lurraldetik. Iñaki Mendiguren

Azken batean, sakabanatzearen eta kartzelako **erregimen** bortitzaren beste biktima bat besterik ez da, gixajoa, beste asko bezala. Jokin Muñoz

Errusiar **erregimen** pankomunista. Iñaki Mendiguren

Akemenestar **erregimena** bat-batean seleukotarren eta azkenean, Eufratesen mendebaldera, erromatarren **erregimenak** ordeztu zuenean. Iñaki Mendiguren

1970eko hamarraldiaren hasieran, truke-tasak flotaziozko **erregimenera** igaro zirenean. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Euskotarren ahaleginek huts egin zuten, beren aliatu ustez nagusi Ameriketako Estatu Batuek ez baitzuten ezer egin Espainian **erregimen** aldaketarik, artean behintzat, gauzatu zedin. Edorta Jimenez

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Freuden patriarka-**erregimenean**, eguneroko aita gizajoa ez da inoiz Aita sinbolikoaren parera iristen. Joseba Zulaika

Ekonomi **erregimen** berriak ezin zezakeen iraun. Iñaki Mendiguren

Eskubidea eta erabilera bereizten direnean gobernu **erregimenak** munduaren antza hartzen du; hemen, Jainkoak, lehenengo motoreak, kausa bigarrenez sortzen ditu efektu naturalak. Esteban Antxustegi

Espainiako Autoreen eta Editoreen Elkarteko langileak «izu **erregimenean**» bizi direla salatu du langile batzordeak. Berria - Kultura

Ernest Hemingwayren itzulerak diktadura **erregimenari** mesede egin zion. Edorta Jimenez

Estatutu egitasmoak Espainiako Konstituzioa ez ezik, foru **erregimena** ere «indargabetu» nahi duela. Berria - Euskal Herria

Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneral ohia espetxe **erregimenez** aldatzeko erabakia baliogabetu du Auzitegi Nazionaleko Espetxe Zaintzako epaileak. Berria - Euskal Herria

Hala, urraketa horiei erreparatuta, defentsa ezin dela Konstituzioak ezartzen duen moduan garatu eta «egungo berme eta demokrazia **erregimena**» hausten dela dio Oleagak. Berria - Harian

Garapen-bideko herrietan eta Europa Ekialdean, pribatizazio-programak zabaldu izana, inbertsio **erregimenaren** liberalizazio etengabearekin batera. Koro Navarro

Artean epaitu gabe nengoen, baina ETAko presoa nintzela eta segurtasun **erregimen** berezia ezarriko zitzaidala esan zidan. Jokin Urain

5 (orobat maiuskulaz) Franco jeneralaren erregimen diktatoriala.

Irakasle gehienak **erregimenaren** aldekoak genituen. Anjel Lertxundi

Oraingo PC klandestinitatean ari da borrokan, faxismoaren kontra eta demokraziaren alde, eta badu indarrik, bai hemen, bai nazioartean, **erregimena** kolokan jartzeko. Juan Kruz Igerabide

Beraz, turistak erakartzearen aldetik, Errepublikaren zale ohi Ernest Hemingway Nobel sariduna etortzea berez ere baden propaganda, ezin hobeto datorkio **Erregimenari**. Edorta Jimenez

Gerra amaitu ostean diplomatiko karrera egin zuen, harik eta **Erregimenak** Gorteetako diputatu izendatu zuen arte. Edorta Jimenez

6 dieta, janari mota eta kopuruaren kontrola.

Erregimena egiten ari naiz. Iban Zaldua

"Ez zinen egiten ari mehetzeko **erregimena**?", esaten zuen Mirandak. Fernando Rey

Noiz edo noiz mehetzeko **erregimena** egitea erabakitzen zuen, eta jan-neurrian jartzen zen, eta bere buruarekin probatzen zituen debalde ematen zizkioten botika batzuk. Fernando Rey

Erregimen berria hasi eta hilabete baten buruan Hurtado hobeto zegoen; janari urri eta landareki hutsezkoak, bainuek, aire zabalean jarduteak nerbiorik gabeko gizona bihurtzen zuten. Josu Zabaleta

Okela-**erregimen** harekin eta bero harekin, Andres urduri zegoen beti. Josu Zabaleta

Proba jokatu aurreko azkeneko egunetan **erregimen** zehatza egiten dute, eta errekuperatu gabe **erregimena** egiteak kaltea eragiten die. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzinako erregimenaren (3); **aurreko erregimenaren** (4); **beste erregimen** (3); **duen erregimen** (4); **duten erregimen** (3); **erregimen aldaketa** (10); **erregimen aldaketaren** (3); **erregimen bat** (3); **erregimen berezia** (4); **erregimen berria** (4); **erregimen berriak** (4); **erregimen berriaren** (3); **erregimen frankistaren** (5); **erregimen harekin** (3); **erregimen horretan** (3); **erregimen irekia** (4); **erregimen irekian** (3); **erregimen komunista** (3); **erregimen komunistaren** (4); **erregimen komunisten** (3); **erregimen orokorra** (5); **erregimen politiko** (3); **erregimen politikoarekin** (3); **erregimen politikoarekin bat** (3); **erregimen zaharraren** (5); **erregimen zaharreko** (3); **erregimena amaitu** (5); **erregimena amaitu eta** (3); **erregimena erori** (3); **erregimena onesteko** (4); **erregimenak eta** (4); **erregimenaren aurkako** (4); **erregimenaren eta** (3); **erregimenaren kontra** (4); **erregimenaren kontrako** (4); **erregimenaren pean** (4); **eta erregimen** (14); **eta erregimenaren** (3); **francoren erregimena** (10); **francoren erregimena onesteko** (4); **francoren erregimenak** (4); **galindoren erregimen** (3); **galindoren erregimen aldaketa** (3); **husseinen erregimenak** (4); **saddam husseinen erregimenak** (3); **zen erregimen** (3); **zituen erregimen** (4); **zuen erregimen** (5)

---

erregimendu ik **erregimentu**.

---

erregimentu *(orobat **errejimentu**, eta **erregimendu** g.er., eta **erresimendu** g.er., eta **erreximendu** g.er., eta **erreximentu** g.er.)* **1** *iz* koronel edo kideko baten agintepean dagoen soldadu taldea.

Gutxienez bi bidaia Leipzig-eko SS Leibstandarte Adolf Hitler **eregimentuaren** Aginte Nagusira. Alberto Ladron Arana

Eregimentu berean geundenan, ingeniarien 2-41ean. Xabier Paya

Northpoint Bank and Railway-tik ihesi zihoala Tennesseeko 44garren **Eregimentu** Beltzarekin elkartzeko, lortu zuela uste zuenean ohartu zen beste **eregimentu** beltz batera heldu zela, New Jerseyko komandante baten mendean zegoena. Anton Garikano

Aberatsa da, goimailako gizona da, ...ko **errejimentuko** koronela da. Jon Muñoz

Gaueko dantzaldi osoan, Preobrajensyko eta Pavlowskyko **errejimentuen** musika bandak etengabe aritu ziren beren errepertoriotik hautatutako polka, mazurka, scottish eta baltsik ederrenak jo eta jo. Karlos Zabala

Irkutskeko goarnizioan une hartan kosakoen **errejimentu** bat zegoen, bi mila soldadu oinezko guztira. Karlos Zabala

Mezu bolivartar hau Araguako Parakaidisten **Eregimentuan** eta Valenciako Brigada Blindatuan dauden soldadu ausartei zuzendurik dago. Pako Aristi

Argi entzun zuen nola eraikinaren kantoi baten atzetik, eskuinaldetik, soldaduak irteten ziren, **eregimentu** oso bat Biharamunean, bidean aurrera doa **eregimentua**, joanean, Somme aldera. Jose Morales

Klase ertaina ere, legelari eta beste profesional batzuek osatua, behar zen, **eregimentuko** ofizialen baliokide gisa, eta mendeko-andana bat oinarrizko soldadu arrunten parean. Iñaki Mendiguren

Zuen telefono zenbakia eman digute, baina ez dakigu Weber standartenführerra zuen **eregimendukoa** ote den. Alberto Ladron Arana

Horrelako handikiek, berez bakarrik, **eregimenturik** gabeko koronel-gorputz bat osatuko zuketen. Iñaki Mendiguren

Briones kapitainaren **eregimentua** aurreko taldean zegoen. Koro Navarro

Berunezko soldadutxoen bilduma txikia zeukan -husarrak, granadariak, korazariak...-, eta inoiz, egongelan, [...], elkarrekin kolaz pegatutako pospoloekin **eregimentuak** eta brigadak osatzen zituen, eta Ulm-eko edo Borodino-ko batailak berreraikitzen zituen. Iban Zaldua

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Asturiasko **errejimentu**-buru egiten zuen José Gregory koronel giria, preso altxatu ditek gutarrek. Txillardegi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Guk, berriz, kontra egiteko, indar hauek genituen: 48 infanteri batailoi, 3 zaldieri **errejimentu**, eta 2 ingeniari batailoi; gehi 1.200 zaldi eta 85 kanoi. Txillardegi

Nik zera nahi nuke: soldadu-**eregimentu** oso baten aurrera bakarrik irten, eta pistola automatikoarekin haien kontra tiroka hasi. handik gutxira, Aleksandra Stepanovnak etxetik ihes egin zuen zaldieri-**errejimentu** bateko kapitainorde batekin. Jose Morales

Egin kontu hiritik hiru verstara dragoi-**errejimentu** bat zegoela; eta sinetsiko didak ofizial guzti-guztiak, berrogei inguru, hirian zebiltzala? Jose Morales

Lantzari-**eregimentu** bat Pasealeku Zabaletik kargan etorri zen, gorosti-hostoekin armatuta, horrek zauri ikaragarriak eragiten baitizkio etsaiari. Julen Gabiria

4 irud/hed

Bigarren Mundu Gerra pizteaz bat langile **erregimenduak** desegin eta ahal zuenak ahal zuen lekura jo zuen. Jokin Urain

"Zein borrero **errejimentutakoa** da koldar heste-ustel hori?" galdetu zuen Mikadoak. Xabier Olarra

Zuhaitz adarrak txori **erregimentuen** azpian makurtzen ziren. Josu Zabaleta

Zabalgunez zabalgune, lore multzoak aurkitzen ziren, edo zuhaixka zerrendak ibilaldi bat egiten ari diren eskolaumeak bezala zerrendan jarriak, arrosa landare bikainak edo fruitu arbolazko **erregimentuak**. Josu Zabaleta

---

erregina *(orobat **erregin** g.er.)* 1 *iz* erregeren emaztea; erreinu bateko buru den emakumea.

Eta **erregina** izendatuko dut. Felipe Juaristi

Arturren zaldun asko omen dauzka bahiturik, eta galdetzen du ea baden Kameloten berari aurre egiteko zaldunik; ager dadila alboko basoan, Ginebra **erregina** lagun. Juan Kruz Igerabide

Ester **erreginak** eta Mardokeok antolatu eta arautu zituzten egun hauek betiko, berentzat eta ondorengoentzat. Jose Antonio Mujika

Beatriz **erreginaren** ama Juliana Orange-Nassau hil da. Berria - Mundua

Orangeko printzesa, Herbeheretako Beatriz **erreginaren** ahizpetako bat. Josu Zabaleta

Zuhaur ezen, Andere Katalina **Erreginaren** anderauren izanik, nik neuk galdu nuelarik munduratu ninduen ene ama, gogoratu zitzaizun, ene bizimoldea kontutan hartuz, eta begiratuz, zu ene ama izatea. Piarres Xarriton

Ottokar I erregearen eta Hungariako Konstantza **erreginaren** alaba zen. Askoren artean

Erregina Joanak, Arroxelara partitzean, Agaramont kendu eta Arros utzi zuen bere ordezko, armadaburu eta lotinant jeneral. Aingeru Epaltza

Espainiako errege eta **erregina** mugimendu kooperatibistaren sorterrira joango dira Arrasatera, Fagor enpresaren ontzi-ikuzgailu lantegi berria inauguratzera. Berria - Euskal Herria

Sabako **erregina**, Salomonek Jaunaren osperako nolako izena zuen aditurik, asmakariak ipiniz probatzera etorri zitzaion. Elizen arteko biblia

Bazuten Ingalaterrako **erreginaren** eta printze alemaniarren sostengua. Aingeru Epaltza

Erregina zelaira irten zen beste dama batzuekin. Juan Kruz Igerabide

Begien itxi-ireki batean, jeinu bat agertu zen, eta haren bizkarrean itzuli ziren **erreginaren** jauregira. Patxi Zubizarreta

Lancelot **erreginaren** dorrera hurbildu zenean, Agravainek berehala jakin zuen, zelatariak baitzeuzkan bazter guztietan. Juan Kruz Igerabide

Erregea eta azken zaldunak lehiara abiatu zirelarik, Lancelot **erreginaren** gelara joan zen. Juan Kruz Igerabide

Oloruen, **erreginaren** armada bitan banatu zen. Aingeru Epaltza

Handizkiak direla-eta, haizeak berak ere ez dituela ukitu behar uste dute eta elizara ere **erreginak** balira baino harroputzago joaten dira. Patxi Ezkiaga

Portugaleko Coimbratik Gaztelara itzuli-eta, orduan haren erreinuak gobernatzen zituen gure Errege Jaunaren arreba **Erregina** andereak agindurik, ikuskatu nituen lehenik Kalonje Erregeladunen bi komentu ospetsu, jende zuzen guztien goresmenekin. Piarres Xarriton

Menueta, jauna, dantzen **erregina** da, eta **erreginen** dantza, ulertzen? Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Erlisionez, maitasunez eta jakitatez argitzen zuten gizon anitzek eta [...] zezen lasterketak kondenatzen zituztenek, lasterketa horiek berak onartu zituzten, Isabela deitu lehen andere **erregina** Katolikoak, hiru aldiz haien egiteko baimena eman zuelarik. Piarres Xarriton

Mary **erregina** katolikozalea -Bloody Mary, Maria Odoltsua- igo zen errege-jarlekura, eta, bere aukera erlijiosoa defenditu nahian-edo, eliza erreformatuaren aurka ekin zion amorru biziz, etengabeko sarraski eta jazarpenetan, bost urte luzez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez ahantz Nafarroako **erregina** legitimoa protestantea zela eta euskarazko propaganda bultzatzen zuela. Berria - Kultura

-Gizon honek dio Donibane Garazin ikusi zintuela joan den urtean, **erregina** heretikoaren soldaduak hiriaz jabetu zirenean. Aingeru Epaltza

Feaziarrok: **erregina** zuhurraren hitzak zuzenak dira. Juan Kruz Igerabide

Zuek gurago zenuketen **erregina** alarguna edo erregegai infantea hil izan banu? Koldo Izagirre

Ernaltzen dute erle **erregina** (espiritua, edo pentsamendua, edo dena delakoa), eta hiltzen dira berehala. Anjel Lertxundi

Dakizun bezala, espos berriak Bolgararen leinukoa izan behar du, hala baitzen **erregina** zenaren gutizia. Aurelia Arkotxa

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru egunen buruan, jantzi zituen Esterrek bere **erregina**-jantziak, eta jauregi barneko atarian agertu zen, erregearen gela aurrean. Elizen arteko biblia

'Ez dadila berriro agertu Basti inoiz ere Asuero erregearen aurrean, eta eman dakiola **erregina**-titulua hura baino hobea den beste bati. Jose Antonio Mujika

Erregea maitemindu egin zen Esterrez; honek beste neskatxek baino gehiago bereganatu zuen erregearen onginahia. Beraz, berari ezarri zion **erregina**-koroa. Elizen arteko biblia

Esan erregeari eta **erregina**-amari: Eser zaitezte lurrean, erori baita zuen burutik errege-koroa preziatua. Elizen arteko biblia

1494: Katalina Foixkoa eta Joanes Albretekoa, Nafarroako **erregina**-erregeak. Aingeru Epaltza

Eta erretiluan, sagarrak, **erregina** sagar aurkiak. Felipe Juaristi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Carlos eta Margarita errege-**erreginen** ondoan. Txillardegi

Gure Portugaleko Jaun Andere Errege **Erreginak** 16 bat urtez zerbitzatu ditut. Piarres Xarriton

Gero jakinen zuenez, Tuterako edo Lizarrako jende onak ausartu ziren etsaiari buru ematera eta errege-**erreginen** alde egitera. Aingeru Epaltza

Nik dizuet esango zergatik; hala aurrea hartuko diot aitorpenari, eta errege-**erreginekiko** zuen isil-itunak lardastu gabe du iraungo. Juan Garzia

Protagonistak elezaharrak aipatzen dituen errege-**erregina** Nafarroakoak ez, baizik eta Espainiakoak lirateke, hain zuzen ere. Martin Anso

Akaziasen senide gaituzu. Erregearen eta ama-**erreginaren** seme-alabak agurtzera gatoz. Elizen arteko biblia

Berorren ama **erreginak**, gogo-samin guztiz larrian, berorrengana nau igorri. Juan Garzia

Zergatik ez dugu itsas **erregina** batekin esposatzen? Patxi Zubizarreta

5 irud/hed

Horregatik zioen pobretasuna bertuteen **erregina** dela. Askoren artean

Bertute hau Frantziskorentzat **erregina** Jakinduriaren ahizpa da. Askoren artean

Norma Lúcia oheko **erregina** zela kontatu zion, inork ez zuela txortan egiten hark bezala. Karlos Zabala

Pirinioetako argazkigintzaren **erregina** bilakatu zen, zenbait minutuz, zeharkaldiko ahate itsusia. Aingeru Epaltza

Ezagutza metafisikoak apriorikoa izan beharra baitu: horrela Kantek "behialako **erregina"** filosofian bere tronutik kendu du, haren lekuan Kritika (arrazoimenaren analisia) eseraraziz. Askoren artean

Ni **erreginetako** bat nintzen zure karta-jokoan. Ander Irizar

Bitamina pilula miragarriak aipatuko zizkion batek, aloe landarearen mirakulu sinesgaitzak goraipatuko beste batek, ginseng eta **erregina**-jele anpuluak oparituko hirugarren batek. Imanol Zurutuza

6 (xake jokoan)

Erran nion jokalari alemanak arriskuan jarri zuela bere piezarik baliotsuena, baina ez zitzaiola axola, zeren hala, **erregina** galduta ere, askoz ere goragoko helburu bat iritsiko baitzuen: partida irabaztea. Alberto Ladron Arana

Partida hartako hamabigarren jokaldian, pieza beltzekin jokatzen zuen jokalari alemanak bere **erregina** mugitu zuen. Alberto Ladron Arana

Neuk ere lauki hartaraino eraman nuen **erregina** beltza. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agur erregina (3); **baina erregina** (3); **bere erregina** (6); **beren erregina** (3); **bertuteen erregina** (4); **ene erregina** (7); **errege erregina** (13); **errege eta erregina** (3); **erregina antzezlea** (6); **erregina bat** (7); **erregina baten** (10); **erregina bera** (4); **erregina bere** (8); **erregina bezala** (6); **erregina bihurtu** (3); **erregina bilakatu** (6); **erregina buru** (4); **erregina buru estalia** (3); **erregina da** (4); **erregina deitua** (3); **erregina deitzen** (4); **erregina edo** (4); **erregina egin** (4); **erregina ere** (4); **erregina eta** (20); **erregina eta enperatriz** (3); **erregina ez** (3); **erregina hil** (3); **erregina hura** (3); **erregina ikusi** (3); **erregina izan** (9); **erregina izan zen** (4); **erregina izatera** (4); **erregina izendatu** (3); **erregina jaunaren** (3); **erregina jaunaren profetak** (3); **erregina joanak** (6); **erregina joanaren** (5); **erregina katalina** (3); **erregina zuria** (8); **erregina zuriak** (12); **erregina zuriaren** (5); **erregina zuriari** (3); **espainiako erregina** (4); **ester erregina** (9); **eta erregina** (44); **eta erregina egin** (3); **gaueko erregina** (4); **ginebra erregina** (6); **gure erregina** (6); **guztien erregina** (3); **ingalaterrako erregina** (4); **isabel erregina** (3); **jezabel erregina** (3); **jezabel erregina jaunaren** (3); **kurriloen erregina** (6); **maria erregina** (3); **nafarroako erregina** (14); **nire erregina** (3); **oi erregina** (4); **sabako erregina** (7); **zen erregina** (6); **zuen erregina** (6); **zuten erregina** (3)

ama erreginak (3); **astin erreginak** (4); **basti erreginak** (4); **baxti erreginak** (3); **dantzaldiko erreginak** (4); **erantzun zion erreginak** (3); **errege erreginak** (38); **errege erreginak eta** (3); **erreginak bere** (4); **erreginak ere** (6); **erreginak eta** (9); **erreginak ez** (13); **erreginak ez zuen** (6); **erreginak nahi** (5); **erreginak salomonen** (3); **erreginak salomonen jakinduria** (3); **esan zion erreginak** (5); **espainiako errege erreginak** (15); **ester erreginak** (10); **eta erreginak** (8); **ginebra erreginak** (5); **ingalaterrako erreginak** (3); **kristina erreginak** (3); **maria kristina erreginak** (3); **sabako erreginak** (11); **sabako erreginak salomonen** (3); **zion erreginak** (9); **zuen erreginak** (4)

ana erreginaren (3); **batuko erreginaren** (4); **beatriz erreginaren** (3); **errege erreginei** (7); **errege erreginek** (14); **errege erreginen** (37); **errege erreginen aurrean** (4); **erreginarekin ezkondu** (6); **erreginarekin ezkondu nahi** (5); **erreginaren alde** (8); **erreginaren armada** (4); **erreginaren aurrean** (3); **erreginaren bila** (3); **erreginaren eta** (5); **erreginaren gelara** (3); **erreginaren izenean** (3); **erreginaren plazara** (3); **erreginaren seme** (4); **erreginari eta** (6); **erreginari intsentsua** (3); **erreginen aurrean** (4); **erresuma batuko erreginaren** (4); **espainiako errege erreginek** (6); **espainiako errege erreginen** (8); **espainiako erreginaren** (3); **ester erreginaren** (3); **ester erreginari** (11); **eta errege erreginen** (3); **eta erreginarekin** (3); **eta erreginaren** (5); **eta erreginari** (5); **farida erreginaren** (5); **farida erreginaren plazara** (3); **ingalaterrako erreginaren** (5); **isabel erreginaren** (3); **nafarroako errege erreginen** (4); **victoria erreginaren** (7); **zen erreginaren** (3); **zeruko erreginari** (6); **zeruko erreginari intsentsua** (3); **zuen erreginaren** (4)

---

erreginagai *iz* erreginaren oinordeko emakumezkoa.

Erresuma batetik bestera bazebiltzan jauzi eta punpeka, arazo handirik gabe, edozein naziotako errege edo **erreginagaiak**, bai eta kapitainak eta fraideak, apezpikuak eta kardinaleak, ministroak eta artistak. Piarres Xarriton

Mikomikona **erreginagaiaren** kondairaren jarraia; eta beste zenbait gertakizun, grazia onekoak. Patxi Ezkiaga

---

erreginaldi *iz* erreginaren agintaldia.

Isabelen **erreginaldiaren** hasieran egina. Iñaki Iñurrieta

---

erreginatxo *iz adkor* erregina xumea.

Hasieran, aurreneko bost edo sei egunetan, erabat atseginak izan ziren ametsak, Mab **erreginatxoak** ekartzen dituen horietakoak. Bernardo Atxaga

---

erreginkide *iz* beste batekin batera erregina dena.

Hantxe igo ziren trenera Francisco de Asis **erreginkide** farfailkoia, Gorteko kide bat edo beste; baita, jakina, Carlos Marfori ere, memento hartako maitale nabarmena. Txillardegi

---

erregintxakur *iz*

Hala esaten diote eta hosto iraunkorren moduko haren ileak eta **erregintxakurren** moduko haren azazkalak imajinatzen ditut. Joseba Sarrionandia

---

erregio *(orobat **erregione** g.er.)* **1** *iz* eskualdea.

Gu alderdi federalista gara, Europak nazioen, nazionalitateen, **erregioen** federazio gisa osatua egon beharko du. Berria - Harian

Erabaki horrekin erakutsi zuen ez zela nazio baten presidentea, **erregio** batena baizik. Berria - Euskal Herria

Garapen Iraunkorrerako Gobernu Erregionalen Sarearen sorrera, **erregio** edo eskualde eta herri txikiei atea zabaldu baitie, bere buruaren ordezkari izan daitezen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Paradoxikoa da botere legegilea duten Europako **erregioek** aukera gutxiago izatea Auzitegi horretara joateko, banakoek, pertsona juridikoek edota enpresa batek baino. Berria - Euskal Herria

Akitaniako **erregioa** prest litzateke eskualde horretako bertze burdinola batzuen laguntzaz, komertzialak aurkitzeko, Safami lan gehiagoren emateko gisan. Berria - Ekonomia

Erregio edo gutxiengoen hizkuntzetako hiztunen eta gainontzekoen arteko berdintasuna lortu asmoz. Berria - Euskal Herria

Erregio zein Gutxiengo Hizkuntzen Eurokarta Espainiako Estatuak euskararen kasuan nola aplikatu duen aztertu du. Berria - Euskal Herria

Artelan guztiak Frantziako **Erregioen** Arte Funtsatik datoz. Berria - Kultura

Sahel **erregioan** (Mauritania, Niger, Burkina Faso eta Mali), halaber, desnutrizio kasuak ohikoak direla nabarmendu dute, eta milioika lagun han nazioarteko erakundeen laguntzari esker bizi direla. Berria - Gaiak

Viktor Justxenkok zenbait aldetan botoen %80 bereganatzea ez da iruzurra, ezta bi **erregiotan** botoen %90 baino gehiago lortu izana ere. Berria - Mundua

"Zuzenbide kosmopolita" bat sortu da, eta horretan **erregioek** bere elkarrekiko harremanak sendotu egin dituzte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aztarna Ekologikoa mundu, **erregio**, herri, are norbanako mailan defizit ekologikoaren gainean argia egin dezakeen lanabes bat da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Foro horrek bere adierazpen politikoa ere izango zuen, "Gautengeko Adierazpena" izenekoa, eta haren bidez munduko **erregioek**, denak bat eginik, asmoa erakutsi zuten iraunkortasun kontzeptuari eduki handiagoa emango zioten elementuak bilatzeko lana sakontzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nazioarteko edo **erregio**-arteko merkataritzaren eragina neurtzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Frantziak oraino ez du jakinarazi nola parte hartuko duen estatua-**erregioa** kontratu planean. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoekin)

Erregio independente berria, bere independentziaren ondorioz, hirugarren herri bat izango litzateke Europako Batasunarekiko, eta itunak ez lirateke gehiago bere lurraldean aplikatuko. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **erregional**.

Espainiako Estatuan aitortuta dauden hizkuntza txiki edo **erregio** hizkuntza. Berria - Euskal Herria

Erregio hauteskundeetan hartu beharreko jarrera adostu dute Batasunak, ABk eta bertze elkarte batzuek. Berria - Euskal Herria

Ezker abertzaleak 600 bat lagunen aurrean egin zuen iragarpena, bai Iparraldean kantonamendu hauteskundeekin batera egingo diren Akitaniako **erregio** bozetarako eta bai Espainiako hauteskundeetarako. Berria - Euskal Herria

Usuagoa da **erregio** prentsa, izararen besteko lau-bost-sei plegu, Frantziatik nazioartera eta kiroletatik iragarkietara, txokokerian barna. Iñigo Aranbarri

Toki zein **erregio** mailako egitura administratiboak iraunkortasun kontzeptu pertsonalizatu bat garatzera irits daitezke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizarte taldeen eta herritarren konpromisoa ezinbestekoa zela, estatu kideena eta **erregio** zein toki mailako agintariena bezalaxe, hau da, gizarte eragile guztiena azken batean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiri **erregioei** buruz-eta hitz egiten hasi behar dugu. Berria - Gaiak

5 irud/hed

Musikak [...] bere buruaren gainetik jaso behar du arima, subjektu duenaren gainetik handi dadin eragin behar du eta **erregio** bat sortu non, estuasun guztietatik libre, babes hartzeko modua izango duen oztoporik gabe bere buruaren sentimendu puruan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erregio edo gutxiengoen (4); **erregio zein** (6); **erregio zein gutxiengo** (4); **espainiako estatuak erregio** (3); **estatuak erregio zein** (3); **eta erregio** (3)

---

erregional *(orobat **errejional** g.er.)* **1** *izond* erregiokoa, erregioari dagokiona. ik **erregio 3**.

Identitate nazionalak indartzearekin batera, helburu **erregional** eta globalak -esaterako ingurumenaren babesa eta pobreziaren aurkako borroka- dituzten nazioz gaindiko mugimendu indartsuak sortzen eta garatzen ari dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bloke ekonomiko **erregional** horien oinarria merkataritza da, lotura politiko edo sozialen aurretik. Iñaki Heras

Integrazio **erregional** hori erabakigarria da bere etorkizunerako. Berria - Mundua

Botere Bloke **Erregionala** deitzen zaio horri. Berria - Mundua

Hexagonoaren periferia sinbolikoetan kokatzen diren frantsesezko literatura **erregionalaren** periferian. Ana Urkiza

Gobernu **Erregionalen** Foroa Garapen Iraunkorrari buruz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hauteskunde kantonalak eta **erregionalak** baino aste bat lehenago, hautagaiei presio egitea. Berria - Euskal Herria

Arrasateko kooperatiben merkatua izugarri aldatu da: hasieran lokala edo **erregionala** zena, 80ko hamarraldian Europa mailakoa izatera pasatu zen, eta 90ko hamarraldian berriz mundu mailakoa. Iñaki Heras

Erregionalen eta aldirikoen salneurriaz erabakia, berriz, bihar hartuko du Espainiako Gobernuarekin batera. Berria - Ekonomia

Europako Batzordea Vilawebekin harremanetan jarri zen esateko katalana eta beste hizkuntza batzuk ofizialtzat jotzea eztabaidatzeko aukera zegoela, eta baita gobernu **«erregionalek»** indar handiagoa izango zutela ere aurrerantzean. Berria - Mundua

Foruen eta tradizioaren berrezarpenean, eta liberalak nagusitu baino lehenagoko egitura batugabe eta **"errejionalaren"** gainean eraikia. Txillardegi

Hori horrela, Jaurlaritzaren aburuz, Europak munduan zehar eraikitzen ari diren beste nazio eta errealitate makro-**erregionalentzako** erreferentzia elementu izaten jarraitu behar du. Berria - Harian

2 futbolean, eskualde mailako kategorikoa.

Ibilbidea: 20 urterekin Leioan jokatu zuen, **Erregional** Maila Nagusian. Berria - Kirola

Erregional mailako partidak ondo betetzen ditugu, baina oinarrizko mailetan arazo asko ditugu. Berria - Kirola

Izan ere, eliteko futbolaria izatea zen aitaren urrezko ametsa, futbolari guztiena eta futbolzale gehienena bezala; hura ez zen, ordea, **errejionaletik** pasatu, eta behe-mailetako zerrenda amaigabeak osatzen dituzten jokalari gris anonimo haietako bat izan zen, bere garaian. Joan Mari Irigoien

---

erregionalismo *iz* ekintza potitikoaren ardatz gisa erregioa hartzen duen dotrina.

Erregionalismoaren auzia, literaturan, ez da berria. Berria - Kultura

Partikularismo eta **erregionalismo** linguistikoen kritika hemen katalanenganaino iristen da. Joxe Azurmendi

Bilakaeraz hitz egiten dugu, eta **erregionalismoan** eta federalismo politikoan, indarkeria ekintzarik gabe, bizi diren 270 milioi europar daudela erakusten dugu. Berria - Mundua

Erregionalismo edo nazionalismo txaldan hori, euskal izpirituari kontrajartzen zaiona, ez da euskaldun jatorra, guztiz bestelako arraza baten inbentua baizik. Joxe Azurmendi

---

erregionalista *izond/iz* erregionalismoari dagokiona, erregionalismoaren aldekoa.

Nafarroak EAErekin bat egiteko baldintza gisa erreferenduma ezartzea eskuin **erregionalistaren** ekimena izan zen. Berria - Euskal Herria

Espainia eta Frantziako agintariak beren kolaboratzaile **erregionalistekin** prest daude beste saio bat egiteko. Berria - Euskal Herria

Laster ohartuko nintzen ez zuela hark deus ikustekorik nik gogoan nuen "lurraldearen idazketaren" gaiarekin, bai ordea, anitz, tokiko instituzioek politika **erregionalista** baten barnean, idazketatik -baina nolako idazketatik? -atera zezaketen probetxuarekin. Aurelia Arkotxa

Hiru herrialderentzako proiektu **erregionalista** bat besterik ez du eskaintzen, 'Euskal Herria' eta 'Autodeterminazioa' apaingarri gisa erabiliz. Berria - Harian

Independentista ez diren nazionalista katalanen jarrerak erakusten du **erregionalista** hutsak direla. Berria - Euskal Herria

EAk herritar nafarren nahia «beti errespetatu» duela esan zien **erregionalistei**. Berria - Euskal Herria

Ondoren eskainitako prentsaurrekoan, «alderdi irekia, plurala, gardena eta bizia eratu» nahi duela azaldu zuen **erregionalisten** buruak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
alderdi erregionalista (3)

---

erregionalizazio *iz* adierazten dena erregio administrazioaren esku uztea.

Ekoizpen-jardueren **erregionalizazioaren** neurketa egoki batek kontuan hartu behar ditu, nazioarteko zuzeneko inbertsioen fluxuak ez ezik, enpresa multinazionalen beren barne-merkatuen gaineko jarduerak ere. Koro Navarro

Hain zuzen ere globalizazioak merkatu bakarra sortu ordez, munduko ekonomiaren **erregionalizazioa** ekarri du, batik bat ardatz hirukoitzaren inguruan garatu dena (AEB, Europa eta Japonia). Iñaki Heras

Estrategia multinazionalak, globalizazioa eta **erregionalizazioa**. Koro Navarro

---

erregione ik **erregio**.

---

erregistragailu *iz* erregistratzeko gailua.

Garunaren berezko jarduera elektrikoa detektatzeko gai den **erregistragailu** sentikor bat da elektroentzefalograma. Irene Aldasoro

---

erregistrarazi, erregistraraz(i), erregistrarazten du *ad* erregistratzera behartu.

Begiak argi-fluxuaren aurrean erreakzionatzen du, funtsean (fluxuaren ideiari dagokionez [...]); oso fluxu motel bat (10-13 lm, hamar bat fotoi baizik ez dena) aski izan daiteke

argi-sentsatzio bat **erregistrarazteko**. Josu Zabaleta

---

erregistratu, erregistra(tu), erregistratzen *(orobat **errejistratu** g.er. eta **errekistatu** g.er.)* **1** du *ad* erregistroa egin.

Substantzia berri bakoitzaren usaina **erregistratu** zuen, egitura kimikoarekin erlazio sinpleren bat aurkitzeko itxaropenarekin. Irene Aldasoro

Idoia Zenarrutzabeitia EAEko lehendakariordeak atzo **erregistratu** zuen Eusko Legebiltzarrean 2005erako aurrekontuen proiektua. Berria - Euskal Herria

Jaio berriaren izena **erregistratzeko** garaia iritsita, gizonak sendagileari aitortu zion ez zeudela ezkontuta. Lopez de Arana

Gaur egun155 berriemaile daude **erregistratuta** *Basque Research*en. Berria - Gaiak

Botoa ematen hasi dira atzerrian **erregistratutako** 280.000 irakiar. Berria - Harian

Lau herrialdeetan igoera handia izan zuen INEMeko bulegoetan **erregistratutako** langabeziak: %5etik gorakoa denetan. Berria - Ekonomia

Profanoaren ustez, berriz, zientziak ez du egiten datuak **erregistratu** baino, bere inguruan argazkiak aterako lituzkeen kamera baten modura. Juan Garzia

Autore horiek 2.100 obra berri **erregistratu** zituzten. Berria - Kultura

Etxerat eta Gurasoak elkarteek zazpi salaketa **erregistratu** zituzten atzo. Berria - Euskal Herria

Eleketaldian jalgitako datuak -zernahi zirela- **erregistraturik** gelditzen ziren, gure lagunaren oroimen apartekoan. Aingeru Epaltza

Hirugarrenak -lau dira guztira- Ramon de la Sota Agent of Foreign Principals legez **erregistratua** dela dio, hori 1938ko ekainaren 8ko Act-en arabera egin ahal izan duela dioelarik. Edorta Jimenez

Ur-kontsumoaren zenbatekoa nire liburuxka elektronikoan **erregistratu** ondotik, 12. A etxebizitza hartatik solairu bereko B-ra pasatu nintzen jarraian. Josetxo Azkona

Hollyk ere ez zuen ondo egiten bezeroak **erregistratzeko** lana. Koro Navarro

Behaketa horiek bizitzan zehar **erregistratuta** eta gaixoa hil ondoren haren garuna aztertuta, sentimen jakin batzuekin loturiko garun-azalaren atalak identifikatu ahal izan zituen. Irene Aldasoro

Medikuak berak utzi diolako pittinka-pittinka informazioa **erregistratzeko** eta interpretatzeko gunea izateari eta bere alboan, berarengandik kanpo, osatu direlako dokumentu masak, korrelazio tresnak, eta azterketa teknikak. Xabier Arregi

Lizentzia legezkoa izango da, Europako Interes Ekonomikoko Elkarteen artean **erregistratua** baitago. Berria - Kirola

Munduko leku askotan oraindik heriotzak eta jaiotzak **erregistratzeko** sistemak ez dira behar bezain taxuzkoak, eta horrek arazo handiak ekartzen dizkie umezurtzei. Berria - Gaiak

Kontratu guztiak publikoki **erregistra** daitezela, hiritar guztiek izan dezatela eskubide agiri ondo ordenatuak kontsultatzeko. Juan Martin Elexpuru

Gertaerak **erregistratzeko** norberaren metodoak hobetzea da oroimena hobetzea. Irene Aldasoro

Zehazki esateko, guk iraupen-irudi deitzen dugun hori, denboraren jarioa **erregistraturik** jasotzen duen denborazko irudia, alegia, ez dagokio, berez, denborazko sintesiari. Josu Zabaleta

Horrek esan nahi du hemisferio batean **erregistraturiko** oroimen-arrastoak ez zirela bestera transferitu, trebakuntza-saioetan garunaren bi erdiak aktibaturik egon balira gertatuko zen bezala. Irene Aldasoro

Filmeko irudia kolpe batetik grabatzen da; bideo-irudia, berriz, elkarren gainean dauden lerro horizontalak bata bestearen ondoren aztertzen dituen eskaneatze elektroniko batez **erregistratzen** da. Josu Zabaleta

Raimundo Silvak lerrokatu ahalko balitu, ordena bati jarraiki, bere oroimenean dauden hitz eta esaldi solte guztiak, nahikoa litzateke diktatzea, kasete batean **erregistratzea**, eta hala lortuko luke, idazteko ariketa nekagarrian akitu gabe, oraindik bilatzen ari den Lisboako Setioaren Historiaren kontakizuna. ik grabatu 3. Jon Alonso

Rogeirok gero era laburrean, takigrafikoki, **erregistratu** zuen, geroagoko utziz Osberno [...] izeneko hitz-jasotzaileak sartuko dituen mintza-jarioaren edergailuak. Jon Alonso

2 irud/hed

Ikusmen nerbioko zuntzetatik edo erretinako hainbat ataletatik bidalitako seinale elektrikoak zuzenean **erregistratuz** animaliekin egin diren esperimentuek zera iradokitzen dute: [...]. Irene Aldasoro

3 (era burutua izenondo gisa)

Hobe dugu inportazioan zentratzea, marka **erregistratua**, ospetsua eta bermekoa duten sei-zortzi produktutan bereiztea. Bego Montorio

4 miatu, arakatu.

Jaisteko esan diote, eta goitik behera **erregistratu** dute, zakarki. Iban Zaldua

Batzuetan, droga edo lapurretagatik gazteren batzuk detenitzen bazituzten, paisanozko poliziek komun horietan sartzen zituzten **erregistratzeko**. Iñaki Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erregistratu dira (4); **erregistratu ditu** (3); **erregistratu du** (3); **erregistratu zituen** (3); **erregistratu zituzten** (6); **erregistratu zuen** (8); **sinadura erregistratu** (3)

---

erregistratzaile *(orobat **errejistratzaile**)* **1** *izond* erregistratzen duena.

Rigaudek kutxa **erregistratzailea** itxi eta kristalezko atetik denda-ostean sartu zen. Lopez de Arana

Tom ez zen saltzailea, eta ez zuen inoiz ere kutxa **erregistratzailean** lan egiten. Oskar Arana

Lanean ari dela jantziko du, eta gero, gauez, kutxa **erregistratzailean** utziko du gordeta. Oskar Arana

Jabeak luze gabe bidali zuen, kutxa **erregistratzailean** eskua ezartzeagatik. Aingeru Epaltza

Atsoak nekez lortu du jantzi beltz batean bildutako gorputz bigun hori kaxa **erregistratzailearen** eta besaulki tapizatuaren artean sartzea. Urtzi Urrutikoetxea

• **2** *iz* erregistro publiko baten ardura duen pertsona.

Joaquin Maza Erauskin eta Jordi Cantillo Fontanals akziodunek egun horretan onartutako kontuak forma akats bategatik Gipuzkoako Merkataritzako Erregistroan ez inskribitzeko eskatu diote **erregistratzaileari**. Berria - Kirola

Kolejio-**erregistratzailea**: 14. mailako funtzionarioa. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
kutxa erregistratzailean (6)

---

erregistratze *iz* erregistroa egitea.

Arlo hauek administratiboki batuta eta zainpean dagoen biztanleria masak osatzen ditu, bizitza eta osasun-arau jakin batzuen arabera balioetsia, **erregistratze** era dokumental eta estatistikoen arabera aztertua. Xabier Arregi

Diskurtso medikoaren subjektuak zer ditzakeen funtzioen multzoa, hau da, begiratze, galdetze, deszifratze, **erregistratze**, erabakitze funtzioen multzoa. Xabier Arregi

Konplexuena izanik, garbi dago giza burmuinak ez duela funtzionatzen izadia **erregistratze** hutsez. Juan Garzia

---

erregistrazio *(orobat **errejistrazio**)* *iz* organorako musika lan bat jotzeko aukeratzen diren tubo sailak.

Esteban Elizondok, aldiz, emaitza ezin hobeak lortu zituen **erregistrazio** argi baten bidez, nagusiki musikari euskaldunen obrez osatutako emanaldian. Berria - Kultura

Organoaren doinu garbi eta gardenekin eskala, arpeggio eta duo-z beteriko musika goxoa egin zuen (**erregistrazio** berdinarekin jo beharrekoak dira izaera klabezinistikoa daukaten lan hauek). Berria - Kultura

Berdin esan behar Candendoren lanari buruz, **erregistrazio** lan itzela egin du lan honekin paleta ezohikoa erabiliz, Lazkanoren musikak eskatzen duen bezala. Berria - Kultura

Kantatak zati ezberdinak dauzka eta **errejistrazio** aldetik planoen urritasuna nabaritu genuen Bernal-en partetik. Berria - Kultura

---

erregistro 1 *(orobat **errejistro** g.er.)iz* gorde behar diren datuak biltzen dituen liburu, gailu edo kidekoa; liburu, gailu edo kideko horretan gordetzen den datua bera.

Buttonen txanda iritsi zenean, hark **erregistro** guztiak txikitu zituen lehen erreferentzia puntuan. Berria - Kirola

Ingumak 6.000 egileren 23.000 **erregistro** katalogatu ditu. Berria - Euskal Herria

Bi kategorietako soldaduak elkarren artean erabat nahastuta zeuden lerroetan; zeren eta unitate militarretako soldaduen **erregistroa** ere ez baitzen eguneratuta edukitzen. Iñaki Mendiguren

Ministerioak badu animalia bihurtzen diren azti eta sorginen zerrenda bat; **erregistro** batean agertzen da zer animalia bihurtzen diren, beren ezaugarriak eta abar. Iñaki Mendiguren

Argiak leku eta une jakin batean duen egoeraren **erregistro** bat da argazkia. Josu Zabaleta

Argazkia ikus daitekeen errealitatearen **erregistro** edo aztarren bat dela. Josu Zabaleta

Tripazorroarekin kajoia berriz itxi eta sinatzen hasi zen, ez bat eta ez bi, **erregistroko** orrialdeetan. Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erregistro hobeak nahi dira jaiotzak eta heriotzak kontrolatzeko. Berria - Gaiak

Bizi-eskarmentuaren **erregistro** jarraitu eta osoa osatzen du oroimenak. Xabier Olarra

EKEk frogatutzat eman du auzitan dauden dokumentuak abenduaren 18an sartu zituztela **erregistro** nagusian. Berria - Euskal Herria

Administraziorik inozoena ere laster ohartzen da ezin duela lanean jarraitu bere egintzen **erregistro** orokor bat zertu gabe. Iñaki Mendiguren

Deitu zigun, azkenean, **erregistro** zibileko bulegariak, eta Hanna ageri ez. Joxe Austin Arrieta

Egoera zibil autuetan frogarik legezkoena **erregistro** publikoetatik datorrena da. Andres Urrutia

Lurzoruaren Kalitatearen **Erregistro** Administratiboa egingo dute. Berria - Euskal Herria

Egoera zibil autuetan frogarik legezkoena **erregistro** publikoetatik datorrena da. Andres Urrutia

FIAren denbora **erregistro** ofizialean, bi segundo geroago hutsa konpondu eta Barrichello jarri zuten itzuli horretako lehen postuan. Berria - Kirola

Erregistro bakarra sortuko da Espainian, jasotako eskubide horiekin egiten diren operazio guztien informazioa jasotzeko. Berria - Ekonomia

Funtzionarioak luze hausnartu zuen, **erregistro** zaharrak atera, orrialdeak pasatu, zutitu, eta liburua itxi zuen atzera. Juan Kruz Igerabide

Jendeak borondatez emandako bizkarrezur muineko zelulak gordetzen dituen nazioarteko **erregistro** handira. Berria - Gaiak

Erregistro ezberdinak menperatzen dituena da hiztun ona, eta eskolak horiek sortzen lagundu behar du. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Atzoko deklarazioan, Villanuevak ez zuen argibiderik eman aipatu agirietan agertzen diren bi **erregistro** daten inguruan. Berria - Euskal Herria

Ordurako arrosa zuri bat duen lorontzi hori mahai gainean ote zegoen, eta horman **erregistro**-ohola ote zegoen, non, orain ikusten ahal zuen, bere izena irakurtzen baitzen, goiko lerroan. Jon Alonso

"Badago beste salaketa bat ere, aurrekoari lotuta" jarraitzen du Mathabane jaunak, "eta Ikasleen Datuen Bulegotik datorkigu, **erregistro**-arduradunarengandik. Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errazagoa da bataio-**erregistroetara** jotzea Petiri Pauloren seme den jakiteko, hori inkesta luze baten bidez frogatzea baino. Iñaki Iñurrieta

5 baliabide edo espresabide mota.

Bere buru berde erraldoian, garai, toki eta **erregistro** guztietako euskara guztiak kabitzen ziren. Jon Alonso

Genero eta **erregistro** guztien bildumatzat jo izan da beti obra hau, *summa* dramatikotzat. Juan Garzia

Queneau literatura frantsesaren **erregistro**, erretorika, genero eta azpigenero eta baliabideetatik abiatzen da tradizio baten parodia egiteko. Berria - Kultura

Ez naiz ni posizio literarioak hartzeko zale, liburu bat idazteko orduan edozein ikuspuntu, teoria edo **erregistro** balia daitekeela uste baitut. Bernardo Atxaga

Haren azken aurreko filma, *The Saga of Anatahan,* hainbat **erregistroz** baliatzen da gidoiak eskatzen duen itogarritasunezko eta eromenezko gero eta inpresio kargatuago bat eragiteko. Josu Zabaleta

Elkarrengandik horren ezberdinak diren pertsonaien hitzak literaturaratzeko, nobelaren itzulpena zailtzen duten hainbat **erregistro** erabili zituen Aristik. Berria - Kultura

Urteetako euskara estandarrak sortu duen **erregistro** horretatik sano urrundu ez den literatura kalitatezkoa eta ugaria dugula gaur egun. Iñigo Aranbarri

Uste dut etxetik ezagutzen den euskalkiaren ahozko **erregistroa** presente edukitzeak oso laguntzen diola idazleari honetan. Iñigo Aranbarri

Batzuek bere euskara hobetu nahian, beste batzuek euskaldun garbiak izanik euskararen beste **erregistro** batzuen soinua nolakoa zen entzun nahian. Pello Salaburu

6 (ahotsarena)

Horretan zuzen aritu zen Ataneli baritonoa, Nabucco heroiaren rolean: **erregistro** zabala eta indarra erakutsi zituen. Berria - Kultura

Penak edo amodioa adierazteko **erregistro** guztiak pianissimo-tik forte-ra igarotzeko. Berria - Kultura

Erregistro grabe eta erdikoetan iruditu zitzaidan erakargarriena beraien sonoritatea. Berria - Kultura

Meier sopranoak mezzoaren ahotsa baino **erregistro** zabalagoa du, eta teknika handiko abeslari wagneriar espezializatua da. Berria - Kultura

Dio di Juda arian Neves soprano dramatikoak, Abigail jeloskor eta maltzurraren rolean, sekulako kantaldia egin zigun: jauzi handietan eta agudoetan fin ibili zen daukan **erregistro** luzeko ahotsa eta bolumenari esker. Berria - Kultura

7 (izenondoekin)

Euskalki erregistroa **erregistro** sozialarekin identifikatzen da. Iñigo Aranbarri

Zeren presentzia baten eta absentzia baten **erregistro** bikoitz horrekin ("errealitate bikoitzarekin") jokatzen baitu irudikapenezko irudiak. Josu Zabaleta

Organoaren **erregistro** grabeenetan hasi eta pentsa daitezkeen konbinazio guztiak erabiltzen ditu. Berria - Kultura

Erreportaietan **erregistro** jasoaren eta periodistikoaren artean oreka bilatzen saiatu naiz, ez zitezen jasoegiak izan. Berria - Kultura

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oso aberatsa da testua, gutun bakoitzean tonu aldaketa ugari daude, **erregistro** aldaketa nabarmenak. Berria - Kultura

Erregistro eta ahots kontuak dira. Ana Urkiza

Barthesek, alderantziz, argazkiaren **erregistro**- eta zantzu-izaera azpimarratzen du, erregistro horren izaera mekaniko eta "objektiboa". Josu Zabaleta

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dut uste kazetari **erregistroak** eta literarioak batera joan behar dutenik ezinbestean. Iñigo Aranbarri

Identifikazio- eta adierazgarritasun-**erregistro** ongi ezagunekin jokatzen du batez ere, halakoetan, filmak. Josu Zabaleta

Bi ezaugarri nagusi ditu, nire ustez, liburu honek: batetik, parodia da, hots, hizkera, idazkera, tonu, azken finean, hizkuntz **erregistro** zenbaiten hista. Xabier Olarra

Despedida egokiak nola idatzi behar diren, zer nolako hizketa-**erregistro** erabili eta zer erregistro saihestu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zapatistek mundu zabalean izan duten arrakastaren giltzetako bat hizkera bera izan da, hizkuntza **erregistroaren** egokitasuna. Iñigo Aranbarri

Euskalki **erregistroa** erregistro sozialarekin identifikatzen da. Iñigo Aranbarri

Ia kasu guztietan ikus-**erregistrozko** sistemak hizkuntza ofizialaren notazio grafikoaren forma hartu zuen. Iñaki Mendiguren

10 ***erregistro kutxa*** *(orobat* ***erregistrokutxa****)*

Orduan sorbaldak goratu eta **erregistro-kutxa** ireki zuen. Fernando Rey

Abiek irribarre egin eta Les seinalatu zuen, zerbitzaria, **erregistro-kutxatik** hurbil baitzen. Fernando Rey

Geltokiko burua zutik zen **erregistrokutxaren** barandaren ondoan, egongelan. Fernando Rey

11 ***erregistro liburu*** *(orobat* ***erregistroliburu*** *g.er.)*

Enpresa bakoitzak **erregistro liburu** bat izan beharko du kontratatu edo azpikontratatu dituen langile bakoitzari buruzko informazio guztia jasotzeko. Berria - Ekonomia

Bost axola bizitza ordurako zoriontasunaz gabetua bazegoen edota **erregistro liburuak** gainbegiratzea eta kontratuak sinatzea beste egitekorik ez bazuen. Patxi Zubizarreta

Hubi?cka maniobraburuak telegrafoaren mahaiko lanpara piztu zuen, telegrafoaren **erregistro liburua** ireki eta mahai bazterbazterrean jarri zuen, gero mezuetan axola handiko zerbait erakutsi nahi zidalako keinuak egin zizkidan. Fernando Rey

Telegrafoaren **erregistro liburuko** lerroak pasatu nituen eta nire sinadura jarri eta lapitza kajoian sartu nuen berriz. Arduraduna agindu berriak ematera joan zen, baina marmarrean, erretzaile amorratua izaki; handik gutxira itzuli zen **erregistro liburuekin**. Fernando Rey

Mahai gainean Siemens Halske enpresak mende erdi bat lehenago fabrikatutako hiru telegrafo eta mezu telegrafikoen hiru **erregistroliburu** zeuden. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste erregistro (3); **bi erregistro** (3); **biltzarraren erregistroak** (3); **du erregistroan** (3); **duen erregistro** (3); **erregistro bat** (8); **erregistro batean** (5); **erregistro ezberdinak** (3); **erregistro guztiak** (3); **erregistro guztietan** (3); **erregistro hori** (7); **erregistro horren** (3); **erregistro horretan** (4); **erregistro liburuko** (3); **erregistro zibilaren** (3); **erregistro zibileko** (7); **erregistro zibileko datuak** (3); **erregistroa eta** (3); **erregistroan izen** (4); **erregistroan izena** (4); **erregistroan sartu** (3); **erregistroko arduradunaren** (3); **eta erregistro** (8); **ezkontza zibilen erregistroan** (4); **lapurdiko biltzarraren erregistroak** (3); **legebiltzarreko erregistroan** (4); **zibilen erregistroan** (4); **zibilen erregistroan izen** (4)

---

erregistrokutxa ik **erregistro 9**.

---

erregistroliburu ik **erregistro 10**.

---

erreglamendu ik **erregelamendu**.

---

erreglamentario ik **erregelamentario**.

---

erreglamentu ik **erregelamendu**.

---

erreglan *adlag ipar* erregelen arabera, behar bezala.

2004 ko bidetako lanak ta enpresaren hautatzea, herriko bide zonbeit **erreglan** eman (Bordalandakoa, harrobikoa, Arraidukoa), Bordako bidea Herriko bidetan sartzea, lur saltze Heguy jaunari, etxe egiteko lurretarateko parte hartzea (bide ta...), gai bereziak. Herria

Egina dieten klasamendu hortan, Poloniak du nota txarrena, oraino ez delakotz **erreglan** bederatzi pondutan. Herria

---

erreglatu, erregla(tu), erreglatzen du *ad ipar* konpondu, antolatu.

Baina orduan du bere maxina **erreglatu** oronoztarrak eta erakutsi ere bere joko harrigarria eskuinaz eta ezkerraz, Apeztegiak ere ongi lagunduz. Herria

---

erreglatze *iz* doitzea

Handik igurikatzen zituzten seinaleak ez dituzte ukanak orainokoan eta badira kezka batzu, oraino beti **erreglatze** eta entsegu berrietan ari badira ere. Herria

---

erregogor *izond* nekez erretzen dena.

Dartaiet sartu zen hankak berotzeko adreilu **erregogor** batez. Anjel Lertxundi

---

erregosi, erregosi, erregosten **1** du *ad* janariez mintzatuz, arin frijitu eta saltsan egosi.

Erregosten ari naiz. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izenondo eta izen gisa)

Anoa bat bildots **erregosi** jateko. Oskar Arana

Europa Ekialdeko juduen janari tradizionala; normalean okelaz egina izaten den **erregosi** edo jakia. Josu Zabaleta

Arabar ardoaz maneiatutako idi **erregosia**. Joxean Sagaztizabal

Edozer zuen jaki kutun -ogi eta gurinez egindako budina, mahaspasaduna, patata-orezko pasteltxoak, gazta eta eskabetxea, eltzekariak eta **erregosiak** -, amak gertaturiko edozer. Mirentxu Larrañaga

Igandean, sukaldaritzaren eguna, **erregosi** xapelketarekin. Herria

3 irud/hed

Ospitaleko larrialdietarako lekuan amaitu zuen, bi oinak abarken barruan **erregosirik** eta pauso bakar bat gehiago eman ezinda.Hitzak arrapalada eroan ateratzen zitzaizkidan ahotik, estropezuka, ergelkeria eta emozio **erregosien** uholde ezin geratuzko bat, Hasier Etxeberria

---

erregoste *iz* janariez mintzatuz, arin frijitu eta saltsan egostea.

Parrilla eta plantxaren erabilera pixkanaka galtzen joango da, erabilera horrek eragin omen ditzakeen minbizi eta gainerako gaitzak direla-eta; eta galera hori frijitzearen eta

erregostearen mesedetan izango da. Edorta Agirre

---

erregresibo 1 *izond* atzerantz egiten duena, erregresioa dakarrena.

Atzeranzko jarrerak edo jarrera **erregresiboak**. Berria - Euskal Herria

Bigarren ikuspegi hau, gutxiespenezkoa, emozioa une bateko **erregresio** gisa ulertzen duena, da nagusi ikuskarizko irudiari buruzko literatura guztian. Josu Zabaleta

2 zergez mintzatuz, errenta altuak areago zergapetzen ez dituena.

Beste sailkapen baten arabera, zerga progresiboak (sarreren arabera tasa aldakorrak dituztenak) eta **erregresiboak** (tasa bakarrekoak) bereizten dira. Iñaki Heras

Zerga **erregresiboetan**, berriz, zerga-tasa bakarra izaten da; BEZaren eta beste hainbat tasen kasuan, esaterako, gizabanako guztiek, errenta edo aberastasun maila oso desberdinak dituztela ere, berdin ordaintzen dute. Iñaki Heras

UGTren esanetan, Espainiako Gobernuak bere interesen arabera erabiltzen ditu Toledon adostutako arauak, «aurrekontuak moldatzeko, erreforma fiskal **erregresiboak** egiteko eta errealitatea ezkutatzeko». Berria - Ekonomia

---

erregresio *iz* atzerantz joatea.

Bigarren saioan, oihu egin zidaten garajeko atetik: "Zer gertatzen zaik, David? **Erregresio** bat al daukak?". Bernardo Atxaga

Alde batetik, Platonek ez digu ezagutzaren irudi orokorrik ematen eta, bestetik, ezagutza egiaz uste izatea bada, orduan gurpil zoroan edota **erregresio** infinituan erortzeko arriskua dugu eta, hortaz, definizioari bere balioa kentzeko ere bai. Askoren artean

Horrek, jakina, **erregresio** infinituaren arazoa sortzen du: zein da lehenbiziko artelana? Askoren artean

Baudryk egiaztatzen duenez, bada **erregresio**-egoera artifizial bat, berak "errealitatearekiko harreman inguratzaile" [...] deitzen duenarekin batera gertatzen dena. Josu Zabaleta

---

erregresu *iz* itzultzea, itzulera.

Koherentismoak gainditu nahi dituen arazoak hiru motatakoak dira: aipaturiko **erregresua**, sentimen-hautematea eta egia. Askoren artean

---

erregretatu, erregerta(tu), erregretatzen du *ad ipar* falta sentitu; damu izan.

Gero, **erregretatzen** dut frangotan. Menane Oxandabaratz

---

erregu[1] 1 *iz* eskaria, eskuarki otoitza.

Erregu haren indarra izan zen, batik bat, gau hartan festa hartara joateko irrika piztu zidana. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haren **erregu** eta merezimenduei esker, Jainko ahalguztidunak itsuei ikusmena bihurtu zien. Askoren artean

Senarrari **erregu** eta **erregu** jardun zuen morroiaren askatasunaren alde. Askoren artean

Munduari eskari bat igortzeko bilduak zirela iruditzen zitzaidan, **erregu** bat oihukatzeko, geroago, gauzak hobeto ulertzen direnean, egin ahal izango den gauza bat eskatzeko. Josu Zabaleta

- **Erregu** baten berri eman behar diot berorren gorentasunari -erantzun zion polizi buruak-, hala eskatu didate eta. Karlos Zabala

Alferrik izan ziren Nuñoren arrazoi eta **erregu** guztiak. Martin Anso

Gizonak, irribarrez, lasaitzeko **erregua egin** zigun eskuaz. Anjel Lertxundi

Nola edo hala, anaia zintzoaren **erreguak** egin zuen bide. J.M. Olaizola "Txiliku"

Matronak harmailetan gora igotzen direnean beren **erreguak** egitera, ezin izaten dute kolomartetik elkarri besotik helduta pasatu, banakako ilaran baizik. Santiago Iruretagoiena

Artilleroetako batzuen taldetxoa ere ikusi nuen, belauniko, zeruari **erreguak eginez**. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jainkoaren gizonak etengabeko **erregu** kartsuen indarrez uxatzen zituen deabruak. Askoren artean

Haren zirrara salatzen zuen **erregu** kartsu hark nire gogoa berotu baizik ez zezakeen egin. Jon Muñoz

Schenker doktorearen esku luze eta nikotinaz horituak **erregu** higuingarri batean elkartu ziren. Alberto Ladron Arana

Atearen hotsean, bi-hirutan begiak luzatu Tomasek, nor sartuko, eta denetan **erregu** isiletan ni, nahi zuena aurkitu eta nitaz ahantz zedin. Aingeru Epaltza

Otoitz kartsuak, **erregu** umilak. Jon Muñoz

Erregu guztiz umila Espainiako eta Portugalgo inkisidoreei. Iñaki Iñurrieta

Jainkoaren santuari arren bai arren eskatu zion lagun ziezaiola bere zauri sakratuengatik, bere **erregu** ugariak malko-isuri ugariaren opariaz bustiz. Askoren artean

Horrenbestez, zaldun aitabitxi izendatzen dut berori, baldin eta onartu nahi badu gure **erregu** apala zama horren erantzukizuna berorren gain har dezan. Oskar Arana

Honorio Aita santuarengana joan zen, **erregu** apalez eskatuz izenda zezala Hugolino Ostiako gotzaina bere eta beraren anaien aita eta jauntzat. Askoren artean

Hilabete osoan gelditu zen San Frantzisko hiri hartan, bertakoen **erregu** debotoek behartuta. Askoren artean

Ez zuten haiek horregatik beren barrea eta lana utzi, ezta hegazti Santxok ere bere antsiak, **erregu** txarrez eta onez oratuak. Patxi Ezkiaga

Bidazti ezkon xuriari egindako **erregu** nolabaiteko bat. Anjel Lertxundi

Irrika bizi bat, maitatua izateko irrika, bizimodu hits hartatik libratuko zuen maitasun baten **erregu** etsia. Alberto Ladron Arana

Azken **erregu** baten agiria izan zitekeen, azken aukera baten eskaintza. Joxean Agirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kikori begiratu nion **erregu** aurpegiz. Gorazarre laburrak, gorespen-kantak eta **erregu**-otoitzak. Juan Martin Elexpuru

Belarrira eta ahapeka hitz egin nion, inork entzuteko beldurrez baino, **erregu**-tonu egoki baten bila. Anjel Lertxundi

Aurpegira begiratu nion Rufusi, bazen haren begi bustietan halako **erregu** kutsua. Felipe Juaristi

Erregu ukitua zuten begi izutuekin begiratzen zion noiz bukatuko zain. Bego Montorio

Erregu-oihua eta esker onezko kanta. Elizen arteko biblia

Istorio bat, *c'est ce qu'on appelle une historie*-esan zuen bisitariak, etsipena aurpegian eta **erregu**-ahotsez. Jose Morales

Berak, denak berari erreguka ikusi zituenean, halako **erregu** beharrik ez zela esan zien, aginte indarra aski zenean. Patxi Ezkiaga

Bi barruotatik serora otoitz-egileen **erregu**-eresi fin errepikakorrak hedatzen ziren nekagaitz aire epelean. Txillardegi

Behinik behin, honela mintzatu zitzaion, **erregu**-antzeko ahotsez. Jose Morales

Datu horietan oinarrituz, Nazioarteko **Erregu** Agindua indarrean jartzeko eskatzen dugu. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Otoitz-**erregu** bat, jakina, lipuari. Koldo Izagirre

5 ***erregu egin*** ik **erregutu**.

Erregu egin zion, gero, lehenik eta behin hiru aldiz jotzeko txirrina, eta hurrena bi aldiz, sartzen utz ziezaion. Mirentxu Larrañaga

Erregu egiten dizut, Max, aski da! Ramon Etxezarreta

Ai, ai! **erregu egiten** dizut, **erregu egiten** dizut, bila itzazu, mesedez. Josu Zabaleta

Erregu egiten dizut, ez nigatik, Elsa eta umeengatik baizik. Ramon Etxezarreta

Beti etxean gelditzen nintzela ikusita, **erregu egiten** zidan, musika horren gogoko banuen ea zergatik ez nintzen erromeriara joaten. Xabier Mendiguren Elizegi

Esterri erregeagana joateko agintzen ziola esan zion, erregearen onginahia eskuratu eta bere herriaren alde **erregu egiteko**. Elizen arteko biblia

Kanpoan, kopeta beirategiaren kontra jarrita, ume bat negarrez ari da, 'Ama! Ama!' **erregu eginez** ahopeka. Pako Aristi

Ez eduki ezeren kezkarik, baizik eta, gorabehera guztietan, agertu Jainkoari zeuen eskabideak, otoitz eta **erregu eginez** eta eskerrak emanez. Elizen arteko biblia

Barkatu oraingo honetan ere nire bekatua eta **egiozue erregu** zeuen Jainko Jaunari, heriotza-zigor hau alden diezadan. Elizen arteko biblia

Oihuka degiot Jaunari deiadar, oihuka **degiot** Jaunari **erregu**. Elizen arteko biblia

Aitak hegazkina erori ez dadin **egingo** du **erregu**; amak, gainera, Venezuelatik emakume txarren bat ekar ez dezadan. Pako Aristi

Administrazioari nolabait lotutako zerbait idaztea **egin** dio **erregu** neskak. Pako Aristi

Uretako autoan eramanen ote zuten **egin** zion **erregu** alkatearen idazkariari. Koldo Izagirre

Zuri dei **egin** nizun, Jauna, zuri **erregu**: [...]. Elizen arteko biblia

Mesedez janzteko, nik **erregu**. Joxe Austin Arrieta

· Ahantz ezazu zure alaba naizela, Mahmut Khan, **erregu** bat **egitera** heldu natzaizu. Fernando Rey

Herriko gizon aski sinple bat bere aitatzat hartu zuen eta **erregu** hau **egin** zion: bere aitak madarikatzen zuen bakoitzean, berak, aldiz, bedeinka zezala. egunero, **erregu** bera **egiten** nuen neurekiko: has zitezela kurduerazko klaseak. Askoren artean

Bi **erregu egin** zizkiola Jainkoari, eta bien erantzunak jaso zituela: batean Jainkoari (gorets bedi!) eskatu zion jakinaraz ziezaiola Bere egiazko esentzia; bestean, lehenik egina berau, Bere atributuak ezagutaraz ziezazkiola. Xabier Kintana

Erregu eta eske **egiten** dizut Jaunagan, ene laztana, utz dezazula zuhurki eta zentzuz laztasun hori. Askoren artean

Gizaki guztien alde eskari, otoitz, **erregu** eta esker-emateak **egiteko** eskatzen dizut. Elizen arteko biblia

Deiadar handiz eta negar-malkoz **egin** zion otoitz eta **erregu** heriotzatik libra zezakeen Jainkoari. Elizen arteko biblia

Gizonak, irribarrez, lasaitzeko **erregua egin** zigun eskuaz. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitari erregu egiten (3); **amaren erreguei** (3); **bere erregua** (3); **degiot jaunari erregu** (4); **egin erregurik** (3); **egiozue erregu** (3); **erregu bat** (9); **erregu beharrik** (3); **erregu egin** (15); **erregu egiteko** (3); **erregu egiten** (22); **erregu egiten dizut** (8); **erregu egiten zion** (4); **erregu eta** (11); **erregu eta merezimenduei** (3); **erregu hau** (6); **erregu hau egin** (3); **erregu oihua** (6); **erregua aditu** (4); **erregua edo** (3); **erregua egin** (7); **erregua ez** (3); **erregua onartu** (4); **erreguak eta** (8); **erreguei amore** (3); **erreguei esker** (3); **eta erregu** (22); **eta erregu egin** (4); **eta erregua** (7); **eta erreguak** (5); **gure erregu** (3); **jainkoari erregu** (3); **jaunari erregu** (6); **moisesen erregua** (3); **nire erregu** (6); **nire erregu oihua** (4); **nire erregua** (9); **nire erreguei** (3); **zion erregu** (3)

---

erregu[2] *iz* ale edukiera neurria, anerdiaren baliokidea.

Euntze bat -euntze triste bat- zen jabez aldatu, lau **erregu** eta bortz sagarrondo guztira, Migel Mailuren etxeari zola eman ziezaion. Aingeru Epaltza

Gaztelako **erregu** franko emanen lukete arrazoien balantzan. Aingeru Epaltza

---

erreguarazi, erreguaraz, erreguarazten du *ad* erregutzera behartu.

-Hogei minututik gorako denbora tarte hartan, nik ere eman nahi nizun musu hura emateko eta emateko aritu zinen denboran, **erreguarazi** nizun denboran, arauei jarraikiz eman beharra zegoelako, zeharo anestesiaturik geratu nintzen. Monika Etxebarria

---

erregubide *iz* erregua.

Dekretu horren arabera baldintza edo kondizio zorrotzak izanen dituzte etxaldeek denborarekin: hala-nola, herritik 300 metra bederen urruntze behar etxaldeak eta hazindak ere mugatuak, eta beste **erregubide** gainerat, laborariak kezkatzen dituztenak. Herria

---

erregugile *izond* erregu egiten duena.

Mentxuk sentitu zuen beharbada ez ziola kontsolamendu nahikorik eman, edo behintzat hori adierazten zutela haren begi **erregugileek**. Josu Landa

---

erreguka *adlag* erregu eginez.

Behartsuak **erreguka** eskatzen, aberatsak gogortasunez erantzuten. Elizen arteko biblia

Mazedoniar bat azaldu zitzaion, zutik, **erreguka**: "Zatoz Mazedoniara eta lagun iezaguzu!". Elizen arteko biblia

Hiriko gizon-emakume asko etorri zitzaion San Frantziskori emakumearen alde **erreguka**; izan ere, aspalditik zuen hartua etsai gaiztoak, eta emakumea oinazetzen zuen eta jendea haren garrasiz aztoratzen. Askoren artean

Deiadarrak entzuten dira muinoetan, israeldarrak negarrez eta **erreguka**: galdua baitute bidea, ahaztua Jauna, beren Jainkoa. Elizen arteko biblia

Zure aurrean ahozpeztuko dira eta **erreguka** esango dizute: "Zuregan bakarrik dago Jainkoa, ez da besterik; beste jainkoak ezer ez dira". Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde erreguka (4); **erreguka ari** (24); **erreguka ari zen** (3); **erreguka aritu** (5); **erreguka bezala** (5); **erreguka eta** (5); **erreguka hasi** (15); **erreguka hasi zen** (3); **erreguka hasi zitzaion** (4); **erreguka hasi zitzaizkion** (3); **erreguka ibili** (4); **erreguka ibiltzea** (4); **eta erreguka** (21); **eta erreguka hasi** (4); **jainkoari erreguka** (3); **jarri eta erreguka** (3); **jaunari erreguka** (4); **negarrez eta erreguka** (3); **zitzaion erreguka** (5); **zuen erreguka** (3)

---

erregula *iz* greziar estilo dorikoan, teniaren eta triglifoaren azpiko zerrenda luze eta estua.

Arkitrabearen altuera modulu batekoa izango da, tenia eta gotak ere kontuan hartuta; teniak moduluaren zazpiren bat izango du; teniaren azpian eta triglifoen parez pare zintzilik geratzen diren goten luzera moduluaren seiren batekoa izango da, **erregula** ere kontatuta. Santiago Iruretagoiena

---

erreguladore *(ETCn **413** agerraldi) iz* erregulatzailea.

Haiek, berak bezala, lohitan ehortzi eta pozaderetara egin zuten salto, ihes egitearren **erreguladoreei**, erasotzaileei, patruilei, beteranoei, menditarrei, koadrila armatuei eta parranda-zaleei. Anton Garikano

Erreguladore bat jartzea ere pentsa lezake: pareta elastikozko hodi zati bat, alegia, ponpa-bulkada bakoitzean zabaltzen dena. Irene Aldasoro

Ea lanabesak utziko al dizkioten, eta ea Davidek lagunduko dion **erreguladorea** ipintzen. Oskar Arana

Ponparen indarra gutxitzean, bere posizio normalera itzuliko da **erreguladore** zatiaren pareta, eta, hala, likidoa zirkuitura sartuko. Irene Aldasoro

Urmaelereko bidean Petrus halako eta bestelako **erreguladore**-motez doa hizketan, presio-balbulez, loturez. Oskar Arana

---

erregulagailu *iz* erregulatzen duen gailua.

Zilindro askoko baina erregai- **erregulagailu** gabeko automobil-motor baten antzekoa da muskulua. Irene Aldasoro

---

erregulagarri *izond* erregula daitekeena.

Mahaitxoa, armairu beltza eta intentsitate **erregulagarriko** lanpara. Aingeru Epaltza

Bien artean, nire ohe galantaz landa, besaulki batek, mahaitxoak, armairu beltz batek eta intentsitate **erregulagarriko** lanparak osatzen zuten altzaritegi urria. Aingeru Epaltza

---

erregulaketa *iz* doitzea.

Erregulaketa obraren elementuak neurriz egoki doitzea da, bakoitza banaka eta denak oro har, erlazioak egokituz proportzioa lortzeko. Santiago Iruretagoiena

Arkitekturan egiten diren lanak hauek dira: **erregulaketa**, grekoek *taxis* deitzen dutena; disposizioa, grekoek *diathesis* deitzen dutena; neurriratzea, proportzionatzea eta egokitzea, eta administrazioa, grekoek *oeconomia* deitzen dutena. Santiago Iruretagoiena

---

erregular **1** *izond* arau jakin baten araberakoa.

Erori egin da sinadura hori, harria uretara bezala, eta arrasto aldi berean **erregular** eta apetatsuek olatuak eta zurrunbiloak marraztu dituzte, eta izenpekoa osatu dute, tamaina urriko maisulana. Itziar Otegi

Jon Maia ere **erregular** jardun zen. Berria - Harian

Zabalak, beraz, arauzkoak eta **erregularrak** ziren adizkiei eman zien lehentasuna; ez zaharrenak zirenei, gehien erabiltzen zirenei, eta Euskal Herri osokoak zirenei. Koldo Zuazo

Hain zuzen, bidaia labur eta ertaineko zerbitzu **erregular** horietarako beste modelo bat prestatzen ari da taldea. Berria - Ekonomia

Baionako eta Liverpooleko portuen arteko linea **erregular** bat sortu beharra da laster. Berria - Ekonomia

Bidaia ertain eta luzeko linea **erregularretarako** Century da beste eredu bat: munduan gehien saldu den autobus eredua da, guztira 20.000 egin baitira azken urteetan. Berria - Ekonomia

Erromatarrak ez ziren inoiz ibili nabigazio **erregularrean** kosta hartan: lehorretik aurkitu zituzten portu haiek, eta enbatak hara eramandako itsasontziei esker. Iñaki Iñurrieta

Forma **erregularren** gainean osaturiko sintagma mota guztiak hizkuntzan sartu behar dira, ez hizketan. Isabel Arrigain

Formaldatzen dena fonema bat da; hortaz, gertakari bakartua da -gertakari diakroniko guztiak bezala-, fonema hori agertzen den hitz guztiak era ber-berean aldatzea ekarri ohi duena; alde horretatik dira guztiz **erregularrak** aldaketa fonetikoak. Isabel Arrigain

Aire kondizionatuaren ufakada epel **erregularrak** baizik ez zituen aditzen. Ramuntxo Etxeberri

Beste pixka batean egon zen aditzen, burua altxatuta, itxoiten bezala ohizko soinuren bati, soinu mekaniko **erregularren** bati. Anton Garikano

Danbadak geldoak ziren eta **erregularrak**, eta haien hotsarekin lur gainean lo zeudenak pixkanaka-pixkanaka iratzartzen ari zirela ematen zuen. Karlos Zabala

Léon saltxitxetarako haragia xehatzen ari zen haritzezko enbor puskaren gainean, kolpe geldo **erregularrez**. Karlos Zabala

Isiltasuna palen soinuak baino ez zuen urratzen, ura jo eta jo, tarte **erregularrez**. Karlos Zabala

Bizimodu osotara berri bati ekitean otordu **erregularrak** eta osasungarriak egin behar direla ez gogoratzea ere! Antton Olano

Bihotz-muskuluak ere kontrol-sistema integratu bat du, eta taupada **erregularrak** ematen ditu bizitza osoan ahalegin kontzienterik gabe. Irene Aldasoro

Musika arloko hitza da kadentzia, eta soinu edo mugimenduen erritmo edo errepikapen **erregularra** izendatzeko balio du. Iñaki Arranz

Isiltasuna, artean egunerokoari zerion tintaren tanta-hots **erregularra** izan ezik. Iñaki Mendiguren

Bestelakoa da orain proposatzen duen eredua: ez hasierako berezkotasuna eta xalotasuna, baizik eta bizitza **erregularra**, era monastikoan antolatua. Askoren artean

ik beherago 5. Askoren artean

Erreforma horren bitartez, orain arte ez bezala (epaile baten aginduz ez bazen), Poliziak edozein herritako erroldan sartzeko eskubidea du, egoera **erregularrean** eta irregularrean dauden etorkinak kontrolatzeko. Berria - Euskal Herria

Kontzeptualki artistak euskal estiloa azaldu nahi zuen, bi arima edo erritmo dituena: bata irregularra eta jarraikortasunik gabekoa; **erregularra** eta konstantea bestea. Berria - Kultura

2 aldaketa edo garabehera nabarmenik ez duena; beti-batekoa.

Urratsa neurri goxo eta **erregular** batean atxikiz, banoa gibelera so egiteko nahi errabiarekin. Piarres Aintziart

Gorabehera **erregularrak** nagusi dira ekonomian. Iñaki Heras

Hizkuntza menperatu ez duen haurraren ahoskerako ordezkatze horiek ez dira nolanahikoak izaten, ezta noizbehinkakoak ere, **erregular** eta salbuespenik gabeak baizik haur bakoitzarentzat jabetze-aro bakoitzean. Lourdes Oñederra

Gorputzaren mugimendu **erregular** eta sotilak. Piarres Aintziart

Denbora, bada -denbora psikologikoa behinik behin, hori baizik ez baitugu hemen kontuan hartzen-, ez da gutaz kanpoko jario jarraitu, **erregular** bat. Josu Zabaleta

Zineman berez geldirik dauden irudiak erabiltzen dira, irudi horiek kadentzia **erregular** batean pantaila baten gainera proiektatuz. Josu Zabaleta

Bokalismo monotonoa, baina oso alternantzia guztiz **erregular** eta gramatikalak sortarazten dituena. Isabel Arrigain

Cuzcon, enperadore inkaren gortean, heziketa-ikastaro **erregular** bat zegoen, azterketak egiten zirelarik zenbait fasetan. Iñaki Mendiguren

Denboraren barneko errealitate horren produkzio jarraitu eta **erregular** hori. Ibon Uribarri

Martxa militar baten antzeko zerbait jotzen hasi zen txistuka, eta bere oinek erritmo **erregularra** jadetsi zuten haren konpasean. Josu Landa

Danbadak geldoak ziren eta **erregularrak**, eta haien hotsarekin lur gainean lo zeudenak pixkanaka-pixkanaka iratzartzen ari zirela ematen zuen. Karlos Zabala

Urdaibai denboraldiko traineru **erregularrena** izan da, eta horrek eman die TKE ligako garaipena, baina **erregularra** izateak ez luke asko balioko puntaren puntan ibili izan ez balira. Berria - Kirola

Txirrindulari **erregularra** naizela uste dut; 20 egunean antzeko mailari euts diezaioket. Berria - Kirola

Jauregi segida bat ikusi uste zuen; **erregularrak** ziren, sekulakoak, beira bezain arinak. Karlos Zabala

Eskaileretan gora zetorrela aditu dudanean, bihotzak taupa egin dit, hain zen lasaigarria: zeren beldur izan hain mundu **erregularrean**? Monika Etxebarria

Hotsak egitura akustiko **erregularra** du, musikala: maiztasun jakin bat eta horren ondorio den garaiera. Lourdes Oñederra

Martin haren hortz **erregularrei** so, hipnotizaturik. Eider Rodriguez

· Cutty Shark botiletatik zurrupada txikiak edaten hasi zen, gero eta trago luzeagotan, harik eta leihoko arasan lerraturiko botila haiek kristalezko xilofono itxurako bat osatu zuten arte, isurkin horia gero eta beheratzenago, botila batetik bestera eskailera beherakor **erregular** bat sortuz, ahosoinu bat bailitzan. Harkaitz Cano

3 poligonoez eta poliedroez mintzatuz, angeluak, aldeak eta aurpegiak berdinak dituena.

Geometria lauari amaiera ederra emateko [...] poligono **erregularrak** nola eraiki aurkezten du Euklidesek. Jon Muñoz

Hamabi ariketa idatzi zituen lehenbizi, liburuko lehenbiziko hamabiak, eta *Dodecaèdre* deitu zion lehenbiziko sorta horri, poliedro **erregular** horren edertasunak iradokirik. Xabier Olarra

Forma geometriko **erregular** eta irregular guztiak sor ditzake. Joan Mari Irigoien

Nola kalkulatzen da poligono **erregular** baten area? Iñigo Aranbarri

Adibidez, planoan, zirkulu batean inskribatutako ezin konta ahal poligono **erregular** dago. Jon Muñoz

Bost horiek dira poliedro **erregular** bakarrak. Jon Muñoz

Dodekaedroa, hamabi aurpegiak pentagono **erregular** dituena; eta ikosaedroa, hogei aurpegiak triangelu aldekide dituena. Jon Muñoz

· Kupula **erregular** bat, biribila, goitik beheraino zinkezko xaflaz estalia. Jose Morales

4 (adizlagun gisa) gorabeherarik gabe.

Azkenik, oinaztuak, elurra, euriak, hodeiak, haizeak nahikoa **erregular** gertatzen dira urtaroetan zehar. Xabier Amuriza

Txomin Elosegi [bertsolari] Hazpandarra biziki **erregular** aritu da, oreka galdu gabe, bai eta bere kide Ximun Cazaubon. Herria

Zuzen jardun zuen, **erregular** eta hutsik gabe, eta horrexek eman zion lehen postua. Berria - Kultura

Jon Maia ere **erregular** jardun zen. Berria - Harian

Hasi eta bukatu, ariketa gehienetan hagitz **erregular** aritu zinen, txukun. Berria - Kultura

Ezkurra, aldiz betiko mailan dabil, oso **erregular**. Berria - Kirola

Astillero eta Hondarribia ere oso **erregular** aritu dira, baina Urdaibaik izandako garaipenak falta izan zaizkie. Berria - Kirola

Korritu dudan probetan **erregular** jardun dut, sailkapeneko lehen tokietan. Berria - Kirola

5 erlijio ordena bateko kidea dena.

Orreagako kalonge **erregular** nintzen eta naiz oraino nahiz ez eiki behar nukeen bezainbatean. Piarres Xarriton

6 espainiar armadaz mintzatuz, Marokon aritzen zena;(izen gisa) armada horretako kidea.

Lakarko guduak, armada **erregularrak** errege berriaren aurrean irrigarriro galdu zuelarik, karlistak adoretu egin ziren, baina garaipen eta harrapakin guztiengatik ere, Erregenahiaren kausa bere onenak emana zen. Koro Navarro

Betiko jarrera, aldiz, Ejertzito **Erregularretara** ez bolondres, baizik ordainduta eta lanbidea zen aldetik joatea izan da. Markos Zapiain

Aurre-guardian Alhucemako **Erregularren** Tabor ospetsua zetorrela zabaldu zen. Edorta Jimenez

Alfereza zela; **Erregularren** alfereza, Alhucemako 8.eko Taborrean. Edorta Jimenez

Hantxe geratu zen, lurrean etzanda, ez zekien zenbat denboraz, izuari eutsiz, aurpegia berna moztuaren kontra, falangisten edo **erregularren** ahotsak garbi-garbi, solasa segitzeko moduan entzuten zituela. Ramon Saizarbitoria

· *irud/hed* Unionistek **"erregularren"** euskal gudarostea osatuko dute orduan, Espainiak armatuta, eta, gudaroste horrekin, errukirik gabe odolez eta suz borrokatuko dituzte "euskal errebelde separatistak". Jokin Urain

7 gurarosteez eta soldaduez mintzatuz, arau zorrotzen eta botere zentralaren mende dagoena.

Berari esker, Don Karlosen armadak hogeita hamar mila gerlari **erregular** zeuzkan, eta berrehun eta berrogeita hamar mila matxinatu laguntzaile, ordokian, basoan eta mendian zabalduak. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erregular aritu (5); **erregular bat** (8); **erregular eta** (8); **erregular izan** (3); **erregularra da** (7); **erregularra eta** (3); **erregularra izan** (6); **erregularrak eta** (3); **erregularrak izan** (9); **erregularrak izan gara** (3); **erregularrena izan** (6); **eta erregular** (4); **eta erregularra** (4); **eta erregularrak** (3); **hots erregularra** (3); **liga erregularra** (10); **nbako liga erregularra** (4); **oso erregular** (4); **oso erregularra** (3); **traineru erregularrena** (3)

---

erregularitate *(ETCn **24** agerraldi)* *iz* erregulartasuna.

Pascual eta bioi **erregularitatea** falta zaizuela esan zenuen. Berria - Kirola

Distantziak baloratzeko ahalmena eta pultsuaren **erregularitatea**. Jon Alonso

Giza arazoetako **erregularitateen** azalpen psikologikoak, orain arte nahikoa baliagarri izan zaigunak, balio izango ote digu hemen? Iñaki Mendiguren

Gerra eta bake-ziklo hau ez da itxuraz benetakoak [...] diren **erregularitate** eta errepikapen horietako azkena. Iñaki Mendiguren

---

erregularizatu, erregulariza, erregularizatzen du *ad* erregular bihurtu, araupean ezarri.

Egoera **erregularizatzeko** planak. Berria - Harian

Deportatuen egoera juridikoa **erregularizatzea** zen helburu nagusia. Berria - Euskal Herria

Lege horrek ia erabat ixten ditu etorkinek hemen sartu eta euren egoera **erregularizatu** ahal izateko gaur egun eskura dituzten legezko bide bakarrak. Berria - Euskal Herria

SOS Arrazakeria taldeak Espainiako Kongresuak atzo onartutako Atzerritartasun lege berria gaitzetsi du, «soil-soilik lan arloa **erregularizatzeko** legea delako». Berria - Euskal Herria

Poliziarenean nire egoera **erregularizatu** eta gero, lana bilatu beharko nuen, banuen ostatu merke batean hilabete bat pasatzeko adina diru aurreztuta. Anjel Lertxundi

Merkatuak **erregularizatu** beharra dago. Berria - Kultura

Osteguna da; etorkinak **erregularizatzeko** Espainiako Gobernuak jarritako epea bi egunen buruan bukatuko da, eta haiek irrikan daude muga zeharkatzeko. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera erregularizatu (6); **egoera erregularizatzeko** (3)

---

erregularizazio *iz* erregularizatzea.

Paperik gabeko milatik gora etorkinek itxialdia hasi zuten larunbatean Bartzelonako katedralean, Baldintzarik Gabeko **Erregularizazioaren** aldeko Batzarrak deituta. Berria - Mundua

Erregularizaziorako ez ohiko prozedura hasi aurretik, Miguel Angel Fernandez Espainiako Gobernuak Bizkaian duen ordezkariak aurreratu zuen 18.000 langile atzerritar inguruk izango zutela bertan euren egoera legeztatzeko aukera. Berria - Harian

Enpresok **erregularizazio** ekonomikoa aldarrikatu zuten eta tarifek, hiru urteren buruan, Europako Batasunekoekin bat egitea. Berria - Ekonomia

Zelula-zikloaren **erregularizazioa** ikertzen jardun ostean, minbiziarekin lotutako proteina bi aurkitu zituen Andrew Koff biokimikariak. Berria - Gaiak

Espainian otsailaren 7an hasi eta maiatzaren 7an amaitu zen etorkinen egoera arautzeko **erregularizazio** prozesuak Hego Euskal Herrian oso emaitza onak izan dituela azaldu dute Espainiako Gobernuak Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroan dituen ordezkariek. Berria - Harian

Erregularizazio prozeduraren azken txanpan [...] omisio bidezko erroldatze agiri asko eta asko onartu direla ohartarazi zuen Peredak. Berria - Harian

---

erregularki *izond* era erregularrean, erregulartasunez.

Janinak ez zuen Chadefaud hanpurusa begiko, nahiz eta gerla aitzineko urteetan, Rachel eta Jacobenean sehi lanetan hasi baino lehen, harekin oheratzen zen **erregularki**. Itxaro Borda

Kalitateko elgarretaratze musikal hauk, **erregularki** antolatzen ditu Biligarroak musika eskolak, haundi eta ttipien plazerra eginez. Herria

Gertatu ohi da elkarren ondokoak diren bi terminok, erraz atzeman ohi den elementu bat -edo bi- soilik izan ohi dutela desberdina, eta desberdintasun hori errepikatu ohi dela **erregularki** zenbait bikote paralelotan. Isabel Arrigain

Dardarkari bat sortzeko organo artikulatzaileek oso laster egin behar dute dar-dar, irekitze-ixte laster eta **erregularki** errepikatuek [...] airea kolpeka botatzen duen errebote modukoa eginaz. Lourdes Oñederra

Inertzia oinarrizko eta lasaigarri hori adierazi gabe [...] eurak aktiboki eta **erregularki** eratuak izaten dira. biak Auñamendi mendizale elkarteko kide ziren, eta **erregularki** mendira joateko usaia bazuten. Xabier Arregi

Malgutasunez jokatu behar da, integrazio egitasmoa baldintzatzen duten hainbat irizpide kontuan hartuz eta **erregularki** ebaluatuz. Berria - Euskal Herria

Jokolarien etorrarazteko, interesa eta dirua gastatzeko gogoa pizten ahalko dituen joko berriak **erregularki** proposatu behar zaizkie. Ramuntxo Etxeberri

Jakin minez leitzen zituen Monduteguyk guziz **erregularki** helarazten zizkion berriak: Luis Capet errege ohiaren epaiketa eta erailtzea, Ingalaterra eta Holandarekiko gerla, [...]. Elena Touyarou

Hegazkin baten argia besterik ez zen, puntu gorri bat zeruan **erregularki** keinuka. Bernardo Atxaga

---

erregulartasun *(ETCn **2.171** agerraldi)* **1** *iz* erregularra denaren nolakotasuna.

Aitor Mendiluzek ohiko **erregulartasuna** erakusteaz gain distira handiko bertsoak bota zituen goizean. Berria - Harian

Gizarte-desintegrazioko fenomenoen **erregulartasun** eta uniformitatearen eta gizarte-hazkundeko fenomenoen irregulartasun eta aniztasunaren arteko kontraste harrigarri hau sarritan aipatu dugu. Iñaki Mendiguren

Talde bikaina du, baina **erregulartasuna** falta zaio. Berria - Kirola

2002an **erregulartasunaren** maillota irabazi zuen Tourrean. Berria - Kirola

Analogiak **erregulartasunaren** alde jokatzen du, eta eraketa eta flexio moduak bateratzeko joera du. Isabel Arrigain

Burmuinak **erregulartasunak** bilatzen ditu izadian. Juan Garzia

Orduko denbora hark ustekaberik gabeko gurpilak bezala aurreratzen zuen, aukera berberak behin eta berriro eskainiz, eta **erregulartasunak** habetu egiten zuen mundu eta bizimodu haien sendotasuna. Bernardo Atxaga

Ez zuen etapa bat bera ere irabazi, baina lasterketan izan zuen **erregulartasunak** eman zion garaipena. Berria - Kirola

Izadia deitzen diogun agerpenen ordena eta **erregulartasuna** geuk sortzen dugu. Ibon Uribarri

Esaldi baten **erregulartasuna** hizkuntzaren legeen bidez definitzen den artean, eta proposizioarena logikaren legeen bidez, enuntziatuen **erregulartasuna** eraketa diskurtsiboaren beraren bidez definitzen da. Xabier Arregi

Ez zaio kontrajarri behar enuntziatu baten **erregulartasuna** beste baten irregulartasunari [...], baizik eta beste enuntziatu batzuek ezaugarritzen dituzten enuntziatuei. Xabier Arregi

Bariazioak **erregulartasunez** eraginda, kate luzeak osatzea da prozedura hauen guztien helburuetako bat. Iñaki Arranz

Versta bat edo bi atzerago, urrats segida batek jotzen zuen lurzorua **erregulartasunez**. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Oinez doanak, badaki bere baitan duela indarra aurkitzen: patar gogorrean, izpirituak indarra neurri xuxenean manatzen duela, eta zangoek aldiz izpirituari erantzun goxoan erreferatzen diotela; ibiltzeak badauka halako **erregulartasun** baketsu bat. Piarres Aintziart

Murtziak ere **erregulartasun** handia erakutsi du denboraldi honetan. Berria - Kirola

Beste erredundantzia batzuk egiturazko **erregulartasun** nagusiek eragiten dituzte, simetriak batez ere. Josu Zabaleta

Konposizio hitzak dituen musika-oihartzunak ere ez baitira ahaztu behar, film baten denborazko antolamendua **erregulartasun** jakin batzuen arabera, erritmo batzuen arabera kalkula daitekeela iradokitzen baitute. Josu Zabaleta

Rambuteau kaleko postuetan, egundoko azalore mordoak zeuden, **erregulartasun** harrigarriaz pilatuak, kanoi balak iduri. Karlos Zabala

Aseguru-etxeak giza arazoen **erregulartasun** kalkulagarrian oinarritzen dira. Iñaki Mendiguren

Mundu erreal horren bi eskualdeak, higiduren **erregulartasun** aldagaitzen eremua (zeruko esparrua) eta gure mundua, kontingentea, aldakorra eta galgarria (zerupeko esparrua) bereizi zituen Aristotelesek. Askoren artean

Errepikapenak bideratutako **erregulartasun** iraunkor batek arautzen du horrelakoetan testua, aukeratzen den sekuentzia edozein izanda ere. Iñaki Arranz

Ingelesaren egitura ikuspuntu formaldatzaile batetik jorratzen dugunean, *be* "izan" eta *have* "ukan" elementuen jokabide hau sakoneko **erregulartasunaren** erakusgarri bihurtzen da. Itziar Laka

Gertaera sinkronikoek, direnak direla, nolabaiteko **erregulartasuna** agertzen dute, baina ez dira aginduzkoak. Isabel Arrigain

Lote akastunak nolabaiteko **erregulartasunez** hurrenkatzen zituan, bost onak eta bat txarra. Juan Garzia

Zerua hodei astuna zen, hodei bakarra, urdinezko pitzadurarik gabea, eta ernegatzeko moduko **erregulartasunez** erortzen zen euria, ez gehiago, ez gutxiago. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sinkronian legeaz hitz egiten bada, beti antolamenduaren ikuspuntutik, **erregulartasun** hatsapenaren aldetik egiten da. Isabel Arrigain

Psikopatologiak, zientifikoa izateko nahia duen diskurtso legez, bera baino askoz lehenagokoa zen jardute diskurtsibo bat epistemologizatu zuen XIX. mendearen hasieran, Pinel, Heinroth eta Esquirolekin, eta jardute diskurtsibo honek bere **erregulartasun**-sistema eta bere autonomia eskuratu zuen denbora asko pasa ondoren. Xabier Arregi

Erasoko talentua **erregulartasun** faltarekin uztartzen dute. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esaldi-atribuzio eta aditz-kopula teoria zaharra berrartzean, Port-Royaleko gramatikariek enuntziazio-**erregulartasun** bat ireki dute. Xabier Arregi

---

erregulatiboki *adlag* erregulatzeko eran.

Zerizan goren baten ideia **erregulatiboki** ez ezik eratzaileki ere (ideia baten izaeraren aurka doana) erabiltzetik sortzen den lehenengo huts egitea arrazoimen alferra da (*ignava ratio*). Ibon Uribarri

---

erregulatu, erregula(tu), erregulatzen **1** du *ad* zerbaitek bete behar dituen arauak zehaztu. ik **arautu**.

Eusko Legebiltzarrak urtea amaitu aurretik adingabeen zentroak **erregulatuko** dituen dekretua egiteko eskatu zion atzo Jaurlaritzari. Berria - Euskal Herria

Sozialki eraikiak diren zerok sozialki **erregulatu** (kontrolatu) behar direla argudiatuko dugu. Askoren artean

Egoki iritzi zaio berariazko arau bat egiteari, alderdi guztiak era global eta zehatzago batean **erregulatzeko**. Berria - Kultura

Enplegua **erregulatzeko** espedientea. Berria - Harian

Gizarteko kideen arteko erlazioak **erregulatzen** dituen tradizio eta instituzioak [...] ekonomia hazkunde eta garapenerako berebiziko eragina dute, hala nola familia patriarkalak, edota emakumearen bazterketak. Iñaki Heras

Atano XIII.ak **erregulatu** egin du pilota jokoaren atal inportanteneetarikoa, materialarena, bestela, une batez, imajinatu zer litzatekeen pilotari bakoitzak kantxara aterako

balitu berak ekarritako pilotak. Berria - Kirola

Milaka adindunen egoera **erregulatzea** du helburu lege honek. Berria - Gaiak

2 egokitu, doitu.

Horra aparatua desmuntaturik, termostatoa 800°C-ra graduaturik, edukiontziaren presio-gutxitzailea **erregulaturik**, fluximetroa bere lekuan kokaturik. Juan Garzia

Ohartu naiz neu naizela naraman ontzitxoaren makinista, neuk eragin behar diedala balbulei, neu naizela abiada **erregulatzen** duena hemen. Koldo Izagirre

Teoria etikoen helburua jarduera zuzenak eta okerrak **erregulatzeko** oinarriak finkatzea da. Askoren artean

Dientzefaloak funtzio oinarrizkoak **erregulatzen** ditu, loa, jangura eta libidoa bereziki. Xabier Olarra

Haiek zuten hasieran nazioarteko diru- eta finantza-erlazioak **erregulatzeko** ardura. Koro Navarro

Motor baten kontrol-sistemak, abiatzeko, gelditzeko eta indarra **erregulatzeko** mekanismoak izaten ditu. Irene Aldasoro

Goiko aldean bertze urtegi bat baitzegoen, ateska bat zuena, nondik **erregulatzen** baitzen uraren emana. Joan Mari Irigoien

Dopamina mugimenduen eraginkortasuna **erregulatzen** duen substantzia da. Berria - Gaiak

Odolaren presioa eta emaria **erregulatzeko**. Irene Aldasoro

Gorputza zutik edo mugimenduan dagoela orekari eusteko ezinbestekoa den muskuluen uzkurtze eta erlaxatzea **erregulatzen** du organo horrek. Irene Aldasoro

Mugak ixten eta etorkinak kanporatzen dituzte etorkinen lan-eskaintza **erregulatzeko**. Koro Navarro

Ikuslea irudian zenbateraino sartzen den **erregulatzeko** modu bat bezala ere (izan daitezkeen beste askoren artean) interpreta daiteke errealtasun-efektua. Josu Zabaleta

3 (era burutua izenondo gisa)

Usurbilgo udalean esan zidatenez, martxa **erregulatu** bat antolatzen zen urtero paraje haietan, eta horrelakoetan guardia armatuak kontratatzen omen zituen zakurren jabe amorratuak. Joxerra Garzia

Merkatu **erregulatuak** betidanik izan dira eta izango dira; merkatu autoerregulatuak dira berrikuntza. Iñaki Heras

Gizarte-eustorma bat mantentzean, presioa ezin da arindu urari modu **erregulatuan** jareginez; urtegia ezin da eustorma hondatu gabe hustu. Iñaki Mendiguren

---

erregulatzaile *(ETCn **1.056** agerraldi)* *izond* erregulatzen duena.

Batasun sistematikoaren ideia, printzipio **erregulatzaile** gisa, gauzen loturan batasun hura izadiaren lege orokorren arabera bilatzeko da baliagarria. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren printzipio **erregulatzailearen** oinarria esakune hau da: itzulera enpirikoan muga absolutu baten esperientziarik ezin daitekeela aurkitu, eta beraz, ezta baldintza gisa enpirikoki erabat baldintzatugabea den ezein baldintzarik ere. Ibon Uribarri

Gure hautamen askearen aplikazioaren baldintzak enpirikoak badira, orduan arrazoimenak hor erabilera **erregulatzailea** baino ezin du izan eta lege enpirikoen batasuna eragiteko baino ez du balio. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren erabilera erabilera **erregulatzailea** besterik ez da. Ibon Uribarri

Berdintasunak, hortaz, «arrazoiaren ideia **erregulatzailea**» izaten jarraitzen du, Kantek esango zukeenez. Berria - Kultura

Ideia psikologikoak ezin du adigai **erregulatzaile** baten eskema baino adierazi. Ibon Uribarri

Gene askoren adierazpena modulatzeko, badira zirkuitu **erregulatzaileak**, haiek ere zenbait gene espezifikok gobernatuak. Juan Garzia

Sare **erregulatzaileen** sortze-ahalmena sareok hierarkizatuak eta konbinagarriak izateari zor zaio. Juan Garzia

Geneen adierazpena kiribil **erregulatzaileek** modulatzen dute. Juan Garzia

Jacques-en orduko interes nagusia zera zen: zenbait proteina **erregulatzaileren** tasunak ikertzea. Juan Garzia

Ederki ados daitezke arrazoimenaren interes formala baino ukitzen ez duten bi oinarri-esakuneak, heuristikoak eta **erregulatzaileak** soilik direnak. Ibon Uribarri

Adimen hutsaren oinarri-esakuneak a priori eratzaileak direla (matematikoak bezala) edo **erregulatzaileak** besterik ez direla ere (dinamikoak bezala), ez dute ezer barnebiltzen. Ibon Uribarri

Postulatu horiek oinarri-esakune **erregulatzaile** soilak direla eta oinarri-esakune eratzaileak diren matematikoetatik bereizten direla. Ibon Uribarri

Erregela horiek balio **erregulatzailea** baino ez dute izango, ez, ordea, eratzailea. Ibon Uribarri

Estatu-egitura **erregulatzaileen** hausturak, alabaina, nazioz gaindiko erregulazio- egituren posibilitatearen -eta egokitasunaren- auzia sortu du. Koro Navarro

2 (izen gisa)

Eskaintzak Mexikoko eta Espainiako **erregulatzaileen** baimena behar du, eta behin aprobatuz gero hogei eguneko epea du. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrazoimenaren printzipio erregulatzailea (5); **arrazoimenaren printzipio erregulatzailearen** (3); **erabilera erregulatzailea** (4); **erregulatzaile bat** (4); **erregulatzaile gisa** (7); **erregulatzaile soilak** (3); **erregulatzailea baino** (6); **erregulatzailea baino ez** (4); **erregulatzailearen eskema** (3); **esakune erregulatzaile** (4); **ideia erregulatzailea** (4); **oinarri esakune erregulatzaile** (4); **printzipio erregulatzaile** (12); **printzipio erregulatzaile gisa** (5); **printzipio erregulatzailea** (11); **printzipio erregulatzailea baino** (3); **printzipio erregulatzaileak** (7); **printzipio erregulatzaileak baino** (3); **printzipio erregulatzailearen** (7); **printzipio erregulatzailearen eskema** (3)

---

erregulatze *iz* egokitzea, doitzea.

Hasieran berdin-petoak dira moduluok, baina aurki doaz espezifikoki desberdinduz, multzo bereziak osatzen dituzten gene erregulatzaileen eraginpean; **erregulatze**-lan horretan dihardute, besteak beste, homeogeneek. Juan Garzia

---

erregulazio **1** *iz* erregulatzea; erregulatzearen ondorioa.

Maila instituzionalean, zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzak kontrolatzeko erabiltzen den estrategia **erregulazioa** da. Askoren artean

Erregulazioa hitzartzeko15 egun izango dituzte enpresak eta sindikatuek. Berria - Harian

Gizartea nartzeko prest dagoen aurrerakuntza zientifiko-teknologikoaren neurria ezartzen du **erregulazioak**. Askoren artean

Kapitalen mugimenduen nazioarteko **erregulaziorik** gabe, diru-egongaiztasun kronikoa sortzen da finantza-globalizazioak munduko hazkundeari ekarri dion dinamismoaren ordainetan. Koro Navarro

Erregulazioan ados ez badira jartzen, bi aldeek epaile bana izendatuko dute. Berria - Harian

Erantzukizun hori Nazioarteko **Erregulazioen** Bankuak (NEB) har dezake epe luzera. Koro Navarro

Europar Batasunak arau teknikoak, fiskalak, finantzetakoak eta **erregulaziozkoak** ematen ditu -kritika liberalaren arabera, protekzionismo mozorrotua da araugintza hori-, eta, nolabait ere, estatuen subiranotasuna nazioez gaindiko mailan berrosatu nahi du. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Doikuntza koiuntural eta **erregulazio** ekonomikorako ahalmenen parte handi bat. Koro Navarro

Erregulazio keynestarra, ordea, bereziki ahula gertatu zen hainbat kasutan. Koro Navarro

Kritikaren prozesatze instituzionalak, gero, **erregulazio** politiko-legalaren forma hartzen du gure gizarteetan. Berria - Gaiak

Erregulazio publikoak ikerketa zientifiko-teknologikoaren mugak ezartzen ditu. Askoren artean

Zientziaren eta teknologiaren aurrerakuntzen balazta moduan funtziona dezake **erregulazio** publikoak, modu batean edo bestean gizarteak horiez duen ikuspegia jasoz eta bereganatuz. Askoren artean

Antzeko ahalmenak dituzten hiru multzo dira orobat, eta, horren ondorioz, munduko ekonomiaren **erregulazio** hirukoitza egiteko nahitaezko diren konpromisoak negoziatzeko

gai ere badira. Koro Navarro

NEBk tradizio luzea du nazioarteko finantza-bizitzaren **erregulazio** ez formalean. Koro Navarro

Kapitalen mugimenduen nazioarteko **erregulaziorik** gabe, diru-egongaiztasun kronikoa sortzen da finantza-globalizazioak munduko hazkundeari ekarri dion dinamismoaren ordainetan. Koro Navarro

Herrialde zordunen eskariaren koiunturazko **erregulazioarekin** batera, eskaintza sustatuko zuen egiturazko politika bat bideratu beharra zegoen. Koro Navarro

Bere idatzietan azpimarragarria da merkatuaren balizko **erregulazio** mekanismo autonomoari egiten dion kritika. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Munduko ekonomiaren integrazio gero eta handiagoak eskatzen duen **erregulazio** modu berrien ordez, desarautze lehiakor bat ari da nagusitzen. Koro Navarro

Estatuen esku-hartzea zabaltzea eta munduko ekonomiaren **erregulazio**-hutsunea betetzea. Koro Navarro

Munduko ekonomia kapitalista osatzen duten unitateen interes desberdinen artean bitartekaritza-lanak egiteko gai izango ziren mundu mailako **erregulazio**-erakundeak falta zituen. Koro Navarro

Estatu-egitura erregulatzaileen hausturak, alabaina, nazioz gaindiko **erregulazio**-egituren posibilitatearen -eta egokitasunaren- auzia sortu du. Koro Navarro

Geneon adierazpena gobernatzen duten **erregulazio**-sistemetan gertaturiko aldaketa txiki batzuei zor zaie formen aniztasuna. Juan Garzia

Esaten ari garenaren adibide dugu, esate baterako, laborantza transgenikoaren **erregulazio**-prozesua. Askoren artean

Ekainaren 28an ATBk **erregulazio** espedientea aurkeztu zuen. Berria - Ekonomia

Ontziolako zuzendariekin bildu da langileen batzordea, **erregulazio** espedienteaz aritzeko. Berria - Ekonomia

Onartutako testuak Legebiltzarraren «kezka» azaltzen du **erregulazio** eskaeraren ondorioz izango diren kaleratzeengatik. Berria - Ekonomia

Erregulazio programa bat da, produktu kimikoen merkatua baretzeko egina. Berria - Euskal Herria

Erregulazio-mekanismoak huts egiten duenean, bada, taupada-markagailu bat jarrita konpon daiteke arazoa. Irene Aldasoro

Bikoiztez bikoizte eratu dira, besteak beste, hemoglobinen moduko gene-familia asko, hainbat **erregulazio**-eragile eta immunoglobulinaren familiako geneak. Juan Garzia

Erregulazio-sare berriak eratzea. Juan Garzia

Bakterioen kasuan, **erregulazio**-elementuak atzemateko eta aztertzeko, zelularen analisi genetikoan oinarrituak ginen ia erabat. Juan Garzia

Erregulazio-esparru berrien bila. Koro Navarro

Handiagoak ziren-eta instituzionalizatze-bidean zen erakundearen **erregulazio**-premiak ere. Askoren artean

Zirkuitu elektronikoen elementuekin pareka zitezkeen **erregulazio**-unitateok. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizakietan eta ugaztun gehienetan, oso eraginkorra da tenperatura-**erregulazioa**. Irene Aldasoro

Ur-horniketa eskasak, delinkuentziak eta ustelkeriak enplegu-**erregulazioko** gastuak bikoiz ditzakete herrialde pobreetan. Berria - Gaiak

Krisi horiek ekonomia errealetan izan dituzten ondorio egongaiztasun-eragileek, argi berretsi dute, "ber-arautzea" baino areago, nazioarteko finantza-**erregulazioaren** premia. Koro Navarro

Lan **erregulazioan** sei hilabete daramatenez, langabezia jasotzeko epea bukatu zaie batzuei. Berria - Ekonomia

Guatemalako enpresen %90 eta Bielorrusia eta Zambiako enpresen %70 agintariek enpresa-**erregulazioa** zelan interpretatuko duten beldur dira, «edozer espero daitekeelako». Berria - Gaiak

Izakien forma, haien tasunak, haien karaktereak, sistema horren barne-**erregulazioaren** baitan daude, elementuen jarduera koordinatzen duten eragin-trukeen jokoaren baitan. Juan Garzia

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Lan **erregulazio** itunerako 186 milioi bideratuta gertatu da hori. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dituen erregulazio (3); **du erregulazio** (3); **duen erregulazio** (4); **enplegu erregulazio** (3); **enplegu erregulazioko** (5); **enplegu erregulazioko espedientea** (3); **enpleguaren erregulaziorako** (5); **enpresak erregulazio** (3); **erregulazio eskaera** (4); **erregulazio espediente** (7); **erregulazio espediente eskaera** (3); **erregulazio espedientea** (33); **erregulazio espedientea aurkeztu** (4); **erregulazio espedientea ezarri** (4); **erregulazio espedienteak** (7); **erregulazio espedientearen** (6); **erregulazio espedienteari** (9); **erregulazio espedienterik** (4); **erregulazio publikoak** (4); **erregulazio publikoaren** (4); **erregulazioko espedientea** (6); **erregulaziorako espedientea** (4); **eta erregulazio** (8); **lan erregulazioa** (3); **lan erregulazioan** (4); **nazioarteko erregulazioen bankuak** (3)

---

erregutu, erregu(tu), erregutzen du *ad* erregu egin; otoiztu.

Erregutzen diot, eta ez dit jaramonik egiten. Koldo Izagirre

Gauza bat **erregutzen** dizut bakarrik: etzazu zeure burua tristuraren mendean utz. Antton Olano

Eskatu baino, **erregutu** egin nizun: [...]. Josetxo Azkona

Ez eten, mesedez **erregutzen** dizut. Koro Navarro

Bihar baimena dut eskatuko, berorren begi maiestatetsuen aitzinera agertu eta, aurrena barkamendu **erreguturik** berorri, neure itzulera tupusteko bezain ezusteko honen berri emateko. Juan Garzia

Laguntza eskatzen zuten, begiramena **erregutzen**, Kristok gurutzean izan ez zuen errukia bilatzen. Anjel Lertxundi

"Barka iezadazu, Hester!", **erregutu** zuen Norak bere bihotzaren baitan, eta hitzekin arreta handiagoz ibili behar zuela erabaki zuen. Anjel Lertxundi

Ekaitz Goikoetxeak «ni hiltzen naizenean, ez nazazue bizkarrean eraman, bihotzean baizik», **erregutu** zuen. Berria - Kultura

Orduan Moisesek Jaunari **erregutu** eta itzali egin zen sua. Jose Antonio Mujika

Ez zaitez joan, **erregutu** zidan amak ahots itoaz. Anjel Lertxundi

Otoi, ez ezan negarrik egin - **erregutu** zion aitak-. Anjel Lertxundi

Bekatarien alde **erregutuz**. Askoren artean

Hala ere, Humirzahren alde **erregutu** zion Jaungoikoari. Koro Navarro

Nik hala ere **erregutu** egin nion, arren, zetorrela koadrila osoarekin guregana. Joxe Austin Arrieta

Erregutu nion nekazariari, arren, azkarrago joan zedin. Joxe Austin Arrieta

Hark, ordea, aska zezaten **erregutu** zien leunki. Karlos Zabala

Hollyk keinuren bat egin dezan **erregutzen** dut. Koro Navarro

Jesartzeko **erregutu** zion Mentxuk. Josu Landa

Taldeko presidenteari deitu eta lekutxoa egiteko **erregutu** zion Ferragutek. Berria - Kirola

Hark, ordea, belaunak besarkatu zizkidan eta ez joanarazteko **erregutzen** zidan, ez ginela-eta itzuliko; handik ihes egin behar genuela lehenbailehen. Juan Kruz Igerabide

Bi mandatari bidali zizkioten, lehenbailehen beren hirira etortzeko **erregutuz**. Elizen arteko biblia

Gure amak, belauniko jarrita, hiltzeko **erregutu** zion Federicori, hala, azkenean, bakea izango zuela eta. Pello Lizarralde

Nire ahizpei ohartarazten, **erregutzen** eta aholkatzen diet, arropa zirtzilez jantz daitezela beti. Askoren artean

Alferrik **erregutu** nion behin eta berriro, arren, atondora irten eta esan ziezadala zer gertatzen zitzaion. Joxe Austin Arrieta

Sarritan **erregutzen** zidaten idatziz bil nitzala kontaketa hauek eta oroi nitzakeen beste hainbat. Askoren artean

Ez dakit zenbat denboraz ibili nintzen alderrai, basoan galduta, ikusten ez nituen frankotiratzaileei tiroka nintzatela oihuka **erregutuz**. Harkaitz Cano

Erregutzen diat, beraz, niregana etor hadila bulegora, goiburuan datorren helbidera, maiatzaren bian, arratsaldeko hiruretan. Eskarne Mujika

Mesedez **erregutu** nion joan zedila lehenbailehen etxera, eta esan nion hil egingo zela han euritan. Irene Aldasoro

Ahizpen kargua daukanari **erregutzen** diot, gainera, ardura dadila besteen buru izaten bertutez eta ohitura onez, karguz baino gehiago. Askoren artean

Zuregatik etsaiak benetan maita ditzagun / eta zure aurrean haien alde debozioz **erregu** dezagun. Askoren artean

Horregatik, santuari eskatzen zion **erregu** zezala senarraren alde, Jainkoak bere onberatasunez bihotza bigun ziezaion. Askoren artean

Eta arren eta arren, Gernikan Foruaren Zina tradizioaren arabera egitea **erregutu** zioten. Txillardegi

Gupida **erregutu**, beste erremediorik ez zutenez, ez zen ideia txarra denak anai-arrebak zirela aldarrikatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Morroiari dei egin eta ez dit erantzuten, **erregututa** ere. Elizen arteko biblia

Suharki **erregutu** zion emakume ikusezinari berarekin elkar zedin. Mirentxu Larrañaga

2 (era burutua izen gisa)

Eta erreguak erregutzaileek egiten dituzte eta, ondoren, **erregutuek** nahi dutena egiten dute: erregua bete edo ez bete. Aitor Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde erregutu (11); **alde erregutu zion** (5); **alde erregutuko** (3); **alde erregutzen** (9); **alde erregutzen dut** (4); **arren erregutzen** (4); **barkatzeko erregutu** (6); **bat erregutu** (3); **bat erregutzen** (3); **berriz erregutu** (5); **dut erregutzen** (3); **dut erregutzen hauen** (3); **egiteko erregutu** (8); **egiteko erregutzen** (3); **emateko erregutu** (4); **ere erregutu** (4); **erregutu behar** (6); **erregutu dio** (5); **erregutu diot** (5); **erregutu dit** (3); **erregutu du** (5); **erregutu egin** (5); **erregutu egiten** (5); **erregutu eta** (5); **erregutu jaunari** (5); **erregutu nien** (3); **erregutu nion** (37); **erregutu nuen** (6); **erregutu ondoren** (8); **erregutu zidan** (20); **erregutu zien** (16); **erregutu zigun** (5); **erregutu zion** (90); **erregutu zion jaunari** (3); **erregutu zionean** (4); **erregutu zioten** (14); **erregutu zuen** (12); **erregutuko diot** (3); **erregutuko nion** (3); **erregutuz bezala** (6); **erregutzen diet** (3); **erregutzen dio** (4); **erregutzen diot** (8); **erregutzen dizuet** (8); **erregutzen dizut** (24); **erregutzen du** (5); **erregutzen dut** (8); **erregutzen hasi** (4); **erregutzen hauen** (3); **erregutzen hauen alde** (3); **erregutzen zidan** (3); **erregutzen zien** (4); **erregutzen zion** (28); **erregutzen zitzaion** (3); **erregutzen zuen** (3); **esateko erregutu** (3); **eta berriz erregutu** (5); **eta erregutu** (18); **eta erregutu zion** (6); **eta erregutzen** (14); **ez dut erregutzen** (3); **hainbeste erregutu** (3); **haren alde erregutu** (3); **hauen alde erregutzen** (4); **honela erregutu** (3); **horregatik erregutzen** (3); **izateko erregutu** (3); **jaunari erregutu** (9); **joateko erregutu** (10); **joateko erregutu zion** (5); **moisesek jaunari erregutu** (3); **negarrez erregutzen** (4); **negarrez erregutzen zion** (4).; **sartzeko erregutu** (5); **uzteko erregutu** (6); **zedila erregutu** (5); **zedila erregutu zion** (4); **zedin erregutu** (4); **zedin erregutuz** (5); **zion erregutu** (3)

---

erregutzaile 1 *izond* erregutzen duena.

Espiritu Santuaren garretan suturik, ahots **erregutzailez** eta espirituzko melodiaz "Gure Aita" kantatzen ari ziren. Askoren artean

Izututa eta zer egin ez dakiela, begirada herabe eta **erregutzaile** batez, Garibai Calvinori buruz hasi zaio hizketan higanotari. Anjel Lertxundi

Gazteak, isiltasuna kalearen amaieraraino luzatzearen beldur, hizketa molde **erregutzailez**, berriro xuxurlatu zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Izututa eta zer egin ez dakiela, begirada herabe eta **erregutzaile** batez, Garibai Calvinori buruz hasi zaio hizketan higanotari. Anjel Lertxundi

· -Gure semeak zentzua galdu du -emakumeak, **erregutzaile** -, deabruak limurtu zuen, eta galbidean ipini. Patxi Zubizarreta

2 *iz* erregutzen duen pertsona.

Erreguak **erregutzaileek** egiten dituzte eta, ondoren, erregutuek nahi dutena egiten dute: erregua bete edo ez bete. Aitor Arana

Aipatu autobusa, ene aburuz, beterik zegoen, are gehiago, mukuru beterik; izan ere, kobratzaileak hartuak zituen, ezarritako mugaren gainetik, zenbait **erregutzaile**, arrazoi taxuzkorik gabe eta onginahi gehiegizko batek eraginik. Xabier Olarra

Nire bake-garaiko jantziak erantzi eta **erregutzaileen** jantzi latza jarri dut: deiadar egingo diot Betikoari bizitzako egun guztietan. Elizen arteko biblia

Hots, Ofelia, ez sinetsi haren zin-agintzak; artekari baitira, kanpo-jantziz erakusten dutenarena gabe, nabarmenkeriaren **erregutzaile** huts. Juan Garzia

---

erregutze *iz* erregu egitea.

Bidaiaren parte bat zen, maleta egin behar pisua bezala, ugazabari **erregutze** neketsua bezala, etxeko jabe begiluzeen galdera lotsagabeetatik babestea bezala. Anton Garikano

---

errehabilitazio *(orobat **erreabilitazio** g.er.) iz*

Errehabilitazioa egin beharko dudala logopeda baten laguntzarekin. Hasier Etxeberria

Derrigorrezkoa al dut logopedarekin egin beharreko **errehabilitazioa**? -galdegin zion Aldabari. Hasier Etxeberria

Gaitza lehenbailehen diagnostikatzea urrats garrantzitsua dela diote, garunak kalte txikia badu, **errehabilitazioa** are errazagoa izaten delako. Berria - Harian

Ez noa ahotsaren **errehabilitazioa** orain egitera. Hasier Etxeberria

New Yorkeko Unibertsitatean ikasia da Helena Bascuñana logopeda, garunean kalteak dituzten pertsonen **errehabilitazioan** aditua. Berria - Gaiak

Medikuen arabera, bizimodu normala egin ahal izango du **errehabilitazioaren** ostean. Berria - Gaiak

Errehabilitazio baten historia, Xabier Leibar arkitektoarekin eta Koldo Amestoy ipuin kondalariarekin. Herria

Era berean, **errehabilitazioko** zenbait zerbitzu bertan behera gelditu ziren. Berria - Ekonomia

Adimen osasunerako zentroak, **errehabilitaziorako** klinika eta oso larri dauden gaixoentzako unitateak sortu ziren. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eztabaida sortu da Nafarroan Gobernuak martxan jarri dituen **Errehabilitazio** Psikosozialerako Zentroen eskutik. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errehabilitazio ariketak egin behar izaten nituen egunero. Jokin Urain

Buru-belarri ari da **errehabilitazio** lanetan Jon Santacana. Berria - Kirola

Errehabilitazio zerbitzuan eginiko beste bi lagunekin arratsaldeko mezarako Karmeldarren elizara zihoala. Ramon Saizarbitoria

Urologia eta **errehabilitazio** kontsultak pribatizatuz gero hamaika lanpostu galduko lirateke ELAren ustez. Berria - Euskal Herria

Lauzpabost orriko txosten bat zen, **errehabilitazio** programa bateko mediku psikiatrak sinatua. Joan Mari Irigoien

Eta ez zuen zentzurik **errehabilitazio** programako mediku psikiatrari deitzeak ere, orduantxe otu zitzaidan bezala, Sarari buruzko datu gehiago jakitearren. Joan Mari Irigoien

Errehabilitazio kostuei aurre egiteko Durangon eta Bartzelonan kontzertuak egingo dituzte maiatzean eta Etsaiak, Betagarri, SA, Skalariak eta Gatillazo ariko dira, besteak beste. Berria - Kultura

Horregatik dira garrantzitsuak erientzako **errehabilitazio** zentroak: gaixo daudela ulertzeko, botikak hartzen ikasteko, beren burua kontrolatzeko. Berria - Harian

Ikasle horri zenbait eskola jardueratan parte hartzea galaraztea, **errehabilitazio** tratamendu bat jartzea, ikaslea eskolatik kanporatzea eta ikasleak egindakoa Poliziari salatzea. Berria - Gaiak

Torturatuen **errehabilitazio** zentroa. Berria - Euskal Herria

Gutxieneko zerbitzuei esker, ohiko hemodialisi, **errehabilitazio**, kimioterapia eta erradioterapia saioak egin ahal izango dira. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erreabilitazio lana (3)

---

errei *iz* autobide edo errepide bat zatitzen den zerrendako bakoitza, ibilgailu baten zabalera duena. ik**lerro; karril**.

Zati honetan errepideak, norabide bakoitzean, bi **errei** izango ditu, eta azterketen arabera, egunero 20.500 ibilgailu inguru igaroko dira. Berria - Euskal Herria

Autobusak tipi-tapa gorantz eurentzat gordetako **erreian**. Urtzi Urrutikoeetxea

Atzo arratsaldeko ordu bata aldera, inolako arrazoi barik **errei** batetik bestera zihoan ibilgailu bat ikusi zuen Ertzaintzako patruila batek bere aurretik, A-8 autobidean Durangotik Donostiarako bidean zihoala. Iñigo Aranbarri

Ezkerreko ispilutik begiratu du ustez bizkorrago dabilen **erreian** kokatzeko. Urtzi Urrutikoeetxea

Autobideko irteeraren bila abiatu da **erreirik errei**, eta lehenago argiek bezalatsu, bolantearen mugimendu bortitz batek guztiz iratzarri du neska. Urtzi Urrutikoeetxea

Garbiketa lanak egiteko Ertzaintzak ezkerreko **erreia** moztu egin zuen. Berria - Euskal Herria

Gasolindegian sartzeko desbideratu den unean ikusi ditu, kontrako **erreiaren** ertzean, beren motorren ondoan zutik, solasean. Pello Lizarralde

Bereak bi norabideko lau **erreitakoa** behar du, luzea eta zabala beraz, abiadura neurtzeko oztoporik gabea. Alberto Barandiaren

---

erreibindikatibo ik **errebindikatibo**.

---

erreibindikatu ik **errebindikatu**.

---

erreibindikatzaile ik **errebindikatzaile**.

---

erreibindikazio ik **errebindikazio**.

---

erreierta ik **errieta**.

---

errein ik **errain**[1].

---

erreinaldi *iz* erregealdia; erreginaldia.

Ondoren jakinarazten duenez, Apofis, 15. dinastiako erregearen **erreinaldiko** hogeita hamahirugarren urteko uholde-sasoiko 4. hilabetean idatzita dago testua; Bitarteko Aldian, alegia. Jon Muñoz

Kataulfok Karlosi honen **erreinaldiaren** hasieran zuzendu zion gutunean, Jainkoak lurrean duen ordezkari bailitzan hitz egiten du idazleak erregeaz. Iñaki Mendiguren

Militarismo hau lehenengoz prusiar errege Federiko Gilermo I.aren eta Federiko Handiaren (K.o. 1713-86) **erreinaldietan** agertu zen, Mendebaldearen geroagoko historiako aro guztiekin konparatuta, gerraren gidaritza izugarri formala eta suntsigarritasuna maila txikienekoa zen garaian. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko Afrikara Punt lurraldera Hatshepsut enperatrizaren **erreinaldian** (K.a. 1486-68) egindako espedizioan. Iñaki Mendiguren

---

erreinarazi, erreinaraz(i), erreinarazten du *ad* erreinatzera behartu.

"Efraimen gainean zamalkatzen ibiliko naiz", hau da, **'erreinarazi** eta agintaraziko dut bera'. Xabier Kintana

---

erreinatu, erreina(tu), erreinatzen **1** du *ad* errege, erregina, printze edo printzesa batek monarka funzioa bete.

Herri-administrazio siniko berri honek Han Liu Pang-en ondorengo izan zen Han Wuti-rekin (K.a. 140tik K.a. 87ra **erreinatu** zuen) hartu zuen behin betiko forma. Iñaki Mendiguren

Zesar ere ordeztuz, // mundua gobernatu zuten, aurrez erromatarrek // **erreinatutako** lekuan. Iñaki Mendiguren

"Jagellon" lituaniar jatorriko dinastia bat da, Polonian 1386tik 1572ra **erreinatu** zuena. Karlos Zabala

2 (bestelako monarkek)

Horrekin alderatuta, Ekialdeko erromatar enperadore Konstantino Porfirogenitoren (K.o. 912-59 artean **erreinatu** zuen) bilduma helenikoak hutsaren hurrengoa dirudi. Iñaki Mendiguren

[Mendebaldeko diplomazi kidegoa] Inperioko erkidego guztientzako zegoen autonomia ez-lurraldezkoaren otomandar printzipio klasikoaz baliatu zen miniaturazko *imperia in imperio* sortzeko, non **erreinatu** baitzuten, ez bakarrik Otomandar Inperioan bizi ziren beren herrikideen gain, baita beraien babestu ofizial bilakatu ziren otomandar mendekoen gain ere. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko Erromatar Inperioan **erreinatzen** zuen Alexio I.a Komnenok [...] eskrupulu handiak izan zituen bere soldaduei lagun kristauen odola isurtzen uzteko. Iñaki Mendiguren

Belarriko Dionisio hori Dionisio Sirakusako tiranoa da, Kristo aurreko IV. mendearen inguruan **erreinatu** zuena. Jon Muñoz

· Nik, Jainko Jaunak, zin dagit neure biziarengatik, ahalmen handiz, esku indartsuz eta neure sumina isuriz **erreinatuko** dudala zuen gain. Elizen arteko biblia

3 irud/hed

Zientzialariak ikasteko elkartzen direnean utziko dio zikoizkeriak zientzietan **erreinatzeari**. Jon Muñoz

---

erreint ik **errient**.

---

erreintgo ik **errient**.

---

erreintsa ik **errientsa**.

---

erreintserzio *iz* bergizarteratzea, gizarteratzea.

Pareta batean irakurri zuenez: "Jakkalsdrif **erreintserzio** zelaia" zen hura. Pablo Sastre

Jaurlaritzak eta bere Ertzaintzak, **erreintserzio** politika bultzatuz, eta PSOErekiko eta GAL erakunde parapoliziarekiko izan zuten jokabidea. Jokin Urain

---

erreinu *(ETCn **4.380** agerraldi; cf **erresuma** ETCn **28.831** agerraldi)* **1** *iz* errege edo erregina bat buru duen estatua. ik **erresuma**.

Erreinu askotara hedatzen zen Salomonen agintea: Eufrasetik hasi eta filistearren lurralderaino, eta berdin Egiptoko mugetaraino ere. Jose Antonio Mujika

Alkateak gaur errepublika dena **erreinu** bihurtu nahi du bihar. Felipe Juaristi

Errege horien garaian, **erreinu** bat ezarriko du zeruko Jainkoak: ez dute inoiz ere hondatuko eta haren agintea ez da beste herri baten eskuetara aldatuko. Elizen arteko biblia

Nazioa nazioaren kontra eta **erreinua erreinuaren** kontra altxatuko dira.

Artaxerxesen **erreinu** osoan. Elizen arteko biblia

Haien lurraldeak Mahanaimdik hasita Baxan osoa, Og erregearen **erreinua** izana, eta Jairren herrixkak hartzen zituen. Elizen arteko biblia

Erregearen aginduak zabalarazi egin zuen Mardokeoren izena **erreinu** osoan. Elizen arteko biblia

Erregerik gabeko **erreinua**. Berria - Kirola

Erreinua ez dela erregearena, baina herriarena eta, erregeren boterea bera ere, zuzenbide naturalaren arabera, herriarena dela eta ez erregearena. Piarres Xarriton

Hola abiatzen da Iruñeko **erreinua**, IX. mendean Nafarroako **erreinua** bilakatzen dena. Michel Oronoz

Beste batzuek gogoratzen dute nola Nafarroako **erreinuak** galdu zuen orduan bere independentzia eta zenbat agramondar iragan ziren Frantzia aldera. Piarres Xarriton

Hegoaldeko **erreinuaren** aurka joango da berriro. Elizen arteko biblia

Ehun Eguneko Desertua eta Ilunpeko **Erreinuaren** ekialdetik Lurreko Paradisua duzu. Aurelia Arkotxa

Lurreko **erreinu** guztiak eman dizkit Jaunak, zeruetako Jainkoak, eta Judako Jerusalemen berari tenplua eraikitzeko agindu dit.

Nire **erreinu** guztian Danielen Jainkoari begirune osoa izan diezaiotela guztiek. Elizen arteko biblia

Nazio batetik bestera ibili ziren, **erreinuz erreinu**.

Bere **erreinua** sendotua ikustean, Egiptoko errege ere izatea bururatu zitzaion Antiokori, bi **erreinuetako** errege izatearren. Elizen arteko biblia

Erreinu hori Turkiaraino eta Itsaso Handiraino doa. Aurelia Arkotxa

Salomonen semeari kenduko diot **erreinua** eskutik, eta zuri hamar leinu emango dizkizut. Elizen arteko biblia

Neure etxe eta neure **erreinuaren** buru bezala iraunaraziko dut betierean eta haren errege-aulkia sendoa izanen da beti. Elizen arteko biblia

Zure **erreinua** zatitua izan da eta mediarrei eta pertsiarrei emana. Elizen arteko biblia

Lehen Mundu Gerra ostean serbiar, kroaziar eta esloveniarren **Erreinua** izan zen Jugoslaviako Federazioa. Berria - Mundua

Judako **erreinuan** bizirik geldituak, lurrean sustraiak botatzen eta adarretan fruituak ematen dituzten zuhaitz izango dira berriro.

Zeure jaunaren etxea eman dizut, eta altzoan jarri dizkizut zeure jaunaren emazteak. Israel eta Juda **erreinuak** eman dizkizut. Elizen arteko biblia

2 (izenondoekin)

1972ko ekainaren 26tik uztailaren 3ra **erreinu** zaharreko hiriburua nazioarteko artisten topaleku bihurtu zen. Honek hitzemana zion erresuma edo **erreinu** eder bat, laguntza bat ekartzen bazion bere aldetik Kordobako kalifaren kontra joanez. Berria - Kultura

Erreinu tipi hauek handitu-eta, anitz **erreinu** tipirekin egin dira **erreinu** handiak eta orduan **erreinu** handi askorekin galdatu da Inperioa. Piarres Xarriton

Haren ikasketen garaian gertatzen dira Cisnerosen erreforma, Nafarroako **erreinu** burujabearen suntsiketa eta Lutherren jazarpena. Piarres Xarriton

Valentziako **Erreinu** historikoaren Foruen edukia berreskuratzen saiatuko da Generalitatea, beti ere Konstituzioa errespetatuz. Berria - Mundua

Ni eta zu baino lehen ere beti izan dira profetak, eta horiek gerra, gosea eta izurria iragarri dituzte nazio askorentzat eta **erreinu** ahaltsuentzat. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Munduko sorkaririk dohakabeena eta behartsuena gaur, eta bihar berriz bi edo hiru **erreinu**-koro eskutan dituena, bere ezkutariari eskaintzeko. Patxi Ezkiaga

· Apaiz-**erreinu** izango zaituztet, niri sagaraturiko herri. Elizen arteko biblia

Zazpi urtez egongo zara horrela, Goi-goikoa giza **erreinu** guztien jabea dela eta berak nahi duena ezartzen duela errege aitortuko duzun arte. Elizen arteko biblia

4 irud/hed

Etor bedi zure **erreinua**: ez dezadala ezer eduki, ez arretaz hartu, ez ezagutu zure nahiaren agindua baizik. Joan Mari Lekuona

Martin kazetaria zen, eta kalea da kazetariaren **erreinua**. Berria - Kultura

Zapaburu bipil batek obuluaren epela utzi du eta Falopioren tronpetatik barna gizontsunaren **erreinu** bakartira itzuli da betilun. Eider Rodriguez

Gaztetasuna da benetako Saturnoren **Erreinua**, Urre Aroa lurrean berritua, sasiak pikuak ematen zituena, zerriek txistu hotsei kasu egiten zietena. Xabier Olarra

Teknologia mirarien **erreinu** bilakatu denetik. Arantxa Iturbe

Teknologia berrien **erreinua** da BEC. Berria - Ekonomia

Erakutsi al dizkizute Herioren **erreinu** iluneko ateak? Elizen arteko biblia

Bozkarioz beterik, eskerrak eman diezazkiozuen Aitari, argiaren **erreinuan** bere herri santuarentzat prestaturik dituen ondasunetan parte izateko gai egin zaituztenari. Elizen arteko biblia

Argien **erreinua** utzi eta itzalenera sartutakoan jakin zuen Joanesek Aloiz printzea zuela etxeko gelan solaskide, loaren lekuko izan zuen bezala. Felipe Juaristi

Itzalen **erreinu** miresgarri hartan bidaia misteriotsu bat eginda. Alberto Ladron Arana

Zoriontasuna inork egin ez dituen galderei emandako erantzunen **erreinua** baldin bada, tristura inork erantzun ez dituen galderen probintzia ahantzi bat da. Iñaki Segurola

Egun, 14,5 milioi hektarea hartzen dituzte soja uztek, horregatik deitzen diote Argentinari sojaren **erreinua**. Berria - Gaiak

Han neukan lehengusinaren etxea, gurasoen etxea bezala, gauza jakinen zerrenda eskainiko zidan **erreinu** epel eta aspergarria. Pako Aristi

Bere begien urdinak igortzen zinituen bertze **erreinu** urdin eta argi baterat, adimendua bere etxean den eta konpreni ditaiken mundurat! Herria

5 ***Jainkoaren erreinu***

Bazekien Frantziskok **Jainkoaren erreinua** lurreko edozein txokotan dagoela ezarria. Askoren artean

Sar bedi bere baitan, hain zuzen **Jainkoaren Erreinua** sakonenean dagoelako. Joan Mari Lekuona

Lapurrek, diruzaleek, mozkorrek, izen onaren kentzaileek eta iruzurgileek ez dute **Jainkoaren erreinua** iritsiko. Elizen arteko biblia

Mundu hau **Jainkoaren erreinuko** probintzia bat da, baina probintzia bihurria, eta, gauzen izaeraren arabera, horrela izango da beti. Iñaki Mendiguren

Zeren jakizue, lizun, zikin eta gutiziatsu bakar batek ere -halakoa sasijainkozalea baita- ez duela Kristoren eta **Jainkoaren erreinuko** ondarean parterik izango. Elizen arteko biblia

Ez dut gehiago ardorik edango, **Jainkoaren erreinuan** ardo berria edan arte. Elizen arteko biblia

Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai **Jainkoaren erreinurako**. Elizen arteko biblia

"**Jainkoaren erreinua** eraiki nahi zuen lurrean", eta klaserik, jabetza pribaturik eta estaturik gabeko gizarte baten alde altxatu zituen nekazariak. Rafa Egiguren

Esamolde biblikoa iraultzearen egokitasunaz baliatuta, esango dut protestaldiak eguneroko ogi bihurtu zirela Diru **jainkoaren erreinuan**. Jon Maia

6 ***zeruetako erreinu*** *(ETCn **56** agerraldi; orobat **zeruko erreinu** ETCn **29** agerraldi)*

Historiaren amaiera metaforaz konta daiteke soilik, **zeruetako erreinuan** gertatzen baita, eta han ez baita denborarik. Juan Garzia

Bazekien Frantzisko dohatsuak **zeruetako Erreinua** munduko edozein txokotan dagoela ezarria. Askoren artean

Eta honela, mendez mende betikotasunean, / **zeruko erreinuko** ospean hartuko duzu parte Kontu egin dezagun, bada, dena utzi dugunok, hain gauza gutxirengatik **zeruetako erreinua** gal ez dezagun. Askoren artean

Jainko-maitasunaren prezio neurtezinak bakarrik balio baitu **zeruetako erreinua** erosteko. Askoren artean

Zure otoitzari esker askatu bainaiz oinaze guztietatik eta **zeruko Erreinura** noa. Askoren artean

Zorionekoak bihotz-berriturik hiltzen direnak, **zeruetako erreinuan** izango baitira! Askoren artean

Bere jainkozko egintzak izango dira koroatuak **Zeruetako Erreinuan**. Joan Mari Lekuona

Zoazte eta egin prediku esanez: **zeruetako erreinua** hurbil da. Patxi Altuna

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere erreinu (4); **beste erreinu** (5); **den erreinu** (3); **edo erreinu** (5); **erreinu bat** (7); **erreinu eta** (5); **erreinu guztiak** (7); **erreinu guztien** (8); **erreinu guztien jabea** (4); **erreinu hori** (3); **erreinu horren** (3); **erreinu osoa** (6); **erreinu osoan** (7); **erreinu osoaren** (3); **erreinuz erreinu** (3); **eta erreinu** (8); **giza erreinu** (3); **giza erreinu guztien** (3); **lurreko erreinu** (5); **lurreko erreinu guztiak** (3); **munduko erreinu** (5); **nafarroako erreinu** (3)

bedi zure erreinua (4); **bere erreinua** (12); **bere erreinua ziurtatu** (3); **betiko erreinua** (4); **dagoen erreinua** (4); **delako erreinua** (3); **erreinua da** (3)

aberatsa jainkoaren erreinuan (4); **aberatsak jainkoaren erreinuan** (3); **aitaren erreinuan** (3); **bere erreinuan** (5); **da jainkoaren erreinuan** (5); **dezaten zure erreinuan** (3); **erreinua erreinuaren** (3); **erreinua erreinuaren kontra** (3); **erreinua ez** (6); **erreinua ez da** (4); **erreinua haur** (3); **erreinua haur batek** (3); **erreinua iritsiko** (3); **erreinua ziurtatu** (4); **erreinuan eta** (3); **erreinuan handiena** (3); **erreinuan sartu** (5); **erreinuan sartzea** (5); **erreinuan sartzea baino** (4); **erreinuan sartzeko** (5); **erreinuan sartzen** (3); **eta erreinua** (8); **eta erreinua erreinuaren** (3); **eta erreinuak** (4); **eta zeruetako erreinua** (3); **gure erreinua** (3); **haren erreinua** (4); **haren erreinuak** (6); **israelgo erreinua** (5); **jainkoaren erreinua** (22); **jainkoaren erreinua haur** (3); **jainkoaren erreinuan** (27); **jainkoaren erreinuan handiena** (3); **jainkoaren erreinuan sartu** (4); **jainkoaren erreinuan sartzea** (5); **jainkoaren erreinuan sartzeko** (4); **jaunak bere erreinua** (3); **kontra eta erreinua** (3); **nafarroako erreinua** (5); **nafarroako erreinuan** (3); **nire erreinua** (4); **nire erreinuan** (6); **zeruetako erreinua** (16); **zeruetako erreinuan** (7); **zeruko erreinua** (3); **zure erreinua** (5); **zure erreinuan** (4)

bere erreinuko (5); **bere erreinura** (3); **erreinua erreinuaren** (3); **erreinua erreinuaren kontra** (3); **erreinuaren erdia** (7); **erreinuaren erdia bada** (7); **erreinuaren jabe** (4); **erreinuaren kontra** (5); **erreinuaren kontra altxatuko** (3); **erreinuaren oinordeko** (6); **erreinuaren oinordeko eta** (4); **erreinuko eskualde** (4); **erreinuko eskualde guztietara** (3); **erreinuko jende** (4); **erreinuz erreinu** (3); **espainiako erreinuaren** (3); **eta erreinua erreinuaren** (3); **eta erreinuaren** (5); **eta erreinuko** (8); **gai jainkoaren erreinurako** (3); **gure erreinuaren** (3); **ilunpeko erreinuaren** (3); **jainkoaren erreinuaren** (3); **jainkoaren erreinuaz** (3); **jainkoaren erreinuko** (14); **jainkoaren erreinurako** (4); **nafarroako erreinuaren** (4); **nire erreinuaren** (5); **nire erreinuaren erdia** (4); **nire erreinuko** (5); **puglia erreinuko** (3); **zeruetako erreinuaren** (6); **zeruetako erreinuaren oinordeko** (4)

---

erreinzidente *izond* huts edo delitu bera egiten duena.

Kontzientzia den hiltzaile **erreinzidente** txatxu hori, hainbeste urte eta gero. Harkaitz Cano

---

erreiteratibo *izond* errepikakorra.

Emakume eder guztiei bezalaxe, gizonezkoen proposamenak **erreiteratiboak** eta aspergarriak iruditzen zitzaizkion baina ez izutzeko modukoak. Joxean Agirre

---

erreja *iz* burdin sarea, burdin hesia.

Han eta han, batzuk elurrez erdi estaliak: metal kontainer txikiak eta handiak, plantxazarrak, **errejak**, tuberiak, bizikleten eskeletoak, elektrodomestikoen karkasak, [...]. Pablo Sastre

Errejazko ate bat igaroarazi, sala huts batean barrena, pasillo batean itxoiteko esan, giltzarekin ate bat ireki zuen. Pablo Sastre

Pastera ondoan harea pila bat, adreiluak, lurrean hor eta han kapazo bat, **errejazko** hesi txiki bat, borra, pala, paletak, taladroa eta beste zenbait tresna eta erreminta. Pablo Sastre

---

errejadun *izond* erreja duena, errejaz hornitua.

Eta ez dira **errejadunak** izango eta ezta bi orrikoak ere, batientedunak baizik, eta hauek kanpoaldera irekiko dira. Santiago Iruretagoiena

---

errejent ik **errient**.

---

errejentsa ik **errientsa**.

---

errejidore ik **erregidore**.

---

errejila *iz* xafla edo zerrenda paraleloz edo elkarlotuz eginiko pieza, eskuarki zulo edo kideko bat estaltzeko erabiltzen dena.

Patioko **errejilaren** barrura erori zaio tapoia eta ezin izan dugu atera. Joxemari Urteaga

---

errejiloi *iz* zahi xehea.

Sotoko eskailburuan edukitzen genuen pulpa edo **errejiloia**, eta hartatik botatzen puska bat, pazian egositako arbi, erramolatxa, patatazal, azaosto, sagartxar edo zena zelakoari, zerritegira pasaeran. Patziku Perurena

---

errejimen ik **erregimen**.

---

errejimendu ik **erregimendu**.

---

errejiment ik **erregimendu**.

---

errejimentu ik **erregimendu**.

---

errejional ik **erregional**.

---

errejistratu ik **erregistratu**.

---

errejistratzaile ik **erregistratzaile**.

---

errejistrazio ik **erregistrazio**.

---

errejistro ik **erregistro**.

---

errejudas *interj* harridura-edo adierazten duen hitza.

Errejudas, egingo nuke erabat ahaztu duela kakanarru horrek. Irene Aldasoro

---

erreka **1** *iz* etorri txikiko ur-lasterra. ik **lats**.

Erreka batek, bere ertz garaiei leialtasunez atxikirik, sigi-saga eta ikur-makurka zeharkatzen zuen inguru guztia. Jose Morales

Begira egiezu **erreka** horiei, harri isil horiei, lur errukabe honi. Patziku Perurena

-Ezin hobeki! -erantzun zuen Imanolek dibertiturik, **erreka** harrien gainetik zeharkatzen zuela. Aitor Arana

Erreka zeharkatzen hasi aurretik ttu egin du uraren erdian. Pello Lizarralde

Horrela ibiliz, Ishimsk ibaia zeharkatu zuten, eta Ishimskoe, Berikylskoe eta Kuskoe herrixkak, eta Mariinsk ibaia, izen bereko herria, Bogostowlskoe, eta Txula **erreka**, azkenean, mendebaldeko Siberia eta ekialdekoa bereizten dituena. Karlos Zabala

Hitzek ezin dute den-dena adierazi, ezta hurrik eman ere; uraren azala bezalakoak dira; hondo gutxiko **erreketan**, hitzak arin eta kantari lerratzen dira, eta hondoa ia eskura ikusten da; aldiz, ibai sakonetan, hondoa ikusten ez den horietan, hitzak orbelaren pare dira, ia geldirik, poliki-poliki arrastaka doan erraldoi baten bizkar bustian. Juan Kruz Igerabide

Ez baitira bazterretan lotzen ahal, anitz **errekarat** botaiak dira eta hor itotzen. Michel Oronoz

Badirelakotz kotsadura problemak **errekarat** ateratzen diren ur horietan. Herria

Pasaian beti ikusiko dituzu neskak lixiba egiten eta arropa idortzen; neskek **erreketan** garbitzen dute, arropak balkoietan idortzen dira. Koldo Izagirre

Beleek goizean ogia eta haragia ekarri ohi zioten, eta orobat arratsean ere, eta **errekatik** edaten zuen ura. Elizen arteko biblia

Harea nondik atera egongo ez balitz, orduan **erreketatik** edo legardietatik atera beharko da, eta baita itsasertzetik ere. Santiago Iruretagoiena

Hainbeste zabor eta zikin, **erreketatik** hasi eta ibaietatik segi, lurra eta itsasoa bera zenbat zikindu ditugun! Pello Zabala

Eguzkia gordetzen ari zen, amildegi galdu horietan marmar sakonean nabari ziren **erreketarik** gora zetorren lainoa. Koldo Izagirre

Ur lasterreko **erreketan** zein ur geldokoetan hazten diren landareak hartu dituzte kontuan ikerketa horretan. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Río Seco, "**Erreka** idorra" delakoak izen egokia dauka: ur tintik ez da uhobian. Piarres Aintziart

Emakume hura pozik zihoala **erreka** izoztu batean barrena. Anton Garikano

Ondoren, **erreka** nagusian gora eginez, Urtzaraino iritsi eta hango hondartzatxoaren ondoan esertzen nintzen. Bernardo Atxaga

Orain **erreka** zilartsu bat dago Mari Mistela galdu zen lekuan, Benta Zaharretik hartu eta ezkerretara. Anjel Lertxundi

Dozenaka **erreka** ikustezinen marmarrak ia beste edozein soinu entzutea galarazten du. Pello Lizarralde

Muinoak izan edo ibarra, mendi kaskoak edo beheko **erreka** eta ibaiak. Pello Zabala

Ile-adatsa du beltz-beltza, **erreka** ilun bat bezala gerruntzetan behera doakiona. Aurelia Arkotxa

Ederki asmatua zuten lekua, zaharkin-saltzaile zeken haiek, ametsetako karrika hartan, **erreka** patu txarreko haren gainean. Josu Zabaleta

Erregearen ukoa uko eta haren dudak duda, eta katolikoek isurarazi zuten odolezko **erreketan** joan zen odola odol, 1588ko hartan Frantziako erresumetan eta hirietan baziren higanotak. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zeinen gauza ederra, etxe ondoko **erreka** soinua! Patziku Perurena

Bila nazazu paisaian: ni naiz beti hurbilduz eta beti hurrunduz doan **errekasoinu** hori". Patziku Perurena

Egun seinalatu hartan Leon Karrikak **erreka** zuloaren irudia margotu nahi zuen oihalaren gainean Laino jenero hori ez da goizeko **erreka**-lainoa. Hasier Etxeberria

Ibaien ondoan pilatzen da **erreka**-laino umel, busti eta frexkoagoaibaien ondoan pilatzen da **erreka**-laino umel, busti eta frexkoagoa. atzera eta aurrera ibiltzen zela bera bakarrik mendian eta **erreka** zokoetan. Pello Zabala

Arnon **erreka** ondoan dagoen Aroer hiritik eta ibarraren ertzean dagoen hiritik Galaaderaino, ez zen izan guretzat eskuraezineko hiririk. Elizen arteko biblia

Udaberrian, **erreka** ondoko bidea zoragarria zen. Koro Navarro

Estimatzen dizut arreta, baina Hiru Gorulari deitzen duten **erreka** ondora heldu nahi genuke arratserako. Anjel Lertxundi

Oraingo Zubiaundia Pekoetxetako mendi aldera eramana izan da **erreka** ondotik urrun. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Arnegiko aldetik **erreka** bazterrean dago eta aldiz txokolate egiteko lantegia uraren beste aldean, Luzaideko lurretan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Erreka-bazterrera heltzean, bertan jarri zituen Judasek gudarosteko ofizialak, agindu honekin: [...]. Elizen arteko biblia

Hilerriaren ondotik bide bat pasatzen zen, **erreka** ertzeko zalditegietatik atera eta rantxoko etxeetara joaten zena, muinoan gora. Bernardo Atxaga

Gero, **erreka** zolan jarri nintzen, buru-makur. Aingeru Epaltza

Erreka-ibi bat zeharkatzen? Juan Garzia

Han, **erreka** hegian, biak bakarrik zirelarik, so gelditu zitzaion, bere bizitik beste behin desagertu aitzin. Elena Touyarou

Erreka hegiko arbola baten azpian jaten zuen, gaua etor zedin goaitatuz Basileren ostatura azaltzeko. Elena Touyarou

Erreka inguru horretan egongo duk bere anaia zaintzen. Bernardo Atxaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kalitate handiko DVD-a, guziz aberatsa, kolejioetako ikasleeri zuzendua, bainan ere jende ororentzat baliagarria, eta bereziki ur-**erreketaz** eta ingurumenaz arduratzen diren egiturentzat. Herria

Egiptoko erregea ez zen aurrerantzean bere lurraldetik atera; izan ere, lehen, Egiptoko muga- **errekatik** Eufrates ibairaino, egiptoarren menpe egoniko guztia, orain Babiloniako erregearen menpe zegoen. Elizen arteko biblia

Txixa- **erreka** luzea izan zen. "Garagardoz betetako ibaia da bizitza" esan zuen bere bostean. Joxemari Urteaga

5 *(peko) errekara ipar* hondamendira.

Erdaraz noiznahi mintzatzeko errebeskeriak **errekarat** garamatza eta makur horrek diraueno, gure euskara egunetik egunera galtzera dabilke. Xipri Arbelbide

Kontinentetik funtzionarioak trumilka bidaltzen zituztela; ekonomia alor bakanak **peko errekarat** zihoazela; eta, Korsikako hizkuntza zein kultura ukatuak zirela. Berria - Harian

Bertzalde, kafearen prezioa **peko errekarat** erori da, ondorioz kafe landa eremu zabalak debalde utziz... Herria

Arjentinan **peko errekarat** joana zakote ekonomia, eta gertakari horrek kotsatzen ditu ere auzo herriak, eta berdin urrunagokoak ere. Herria

6 *erreka jo, errekara joan* erabat hondatu.

Jakina, Kostanjoglo bezala zerrien antzera bizi izan banintz, ez nuen **erreka** joko. Jose Morales

Zeren orain ez baldin badu desbaliotzen, sei hilabeteren buruan beharko du egin eta orduan **errekarat** joanen gira, gehiago desbaliatzorat bortxatua izanen baita! Menane Oxandabaratz

7 *erreka soinu (orobat errekasoinu)*

Zeinen gauza ederra, etxe ondoko **erreka soinua** ! Patziku Perurena

Bila nazazu paisaian: ni naiz beti hurbilduz eta beti hurrunduz doan **errekasoinu** hori Patziku Perurena

8 *erreka ziztor* errekatxoa.

Erreka -ziztor bat igarotzen da erdi-erditik. Anjel Lertxundi

Saratik abiatu eta sakonune batean zihoan **erreka ziztor** baten ertzetik ibili ziren Lizuniagaraino, eta handik Illekueta auzora. Koro Navarro

Berehala, gaztainadi bat zeharkatzean, baserriak ikusten ziren lerroan, **erreka ziztor** baten erara kokatuak. Bernardo Atxaga

9 *erreka zulo (orobat errekazulo g.er.)* erreka doan sakonunea.

Erreka zen han ikusten zena, lehengo eguneko **erreka zulo** berbera. Hasier Etxeberria

Hantxe ikusten nuen, eskuak sakeletan sartuta, **erreka zulotik** zihoan ur-lasterraren ertz lohitsuan urkatu bat bezala balantzaka. Koro Navarro

Guardia zibilak hesi-lana egiten zuen xingola horia pasatzen utzi zion orduan, **erreka zuloraino** bertaraino jaitsi ahal izan zedin. Hasier Etxeberria

Kirioak dantzan, bere senetik zeharo aterata zegoen batean, Mikelek animaliari sekulako aizkorakada jo eta, hilik zegoelakoan, **erreka-zulo** batera bota zuen. Martin Anso

Bidegurutze honetan halako erori zen bere zalditik, **erreka-zulo** horretan ez-dakit-zein haur hil zen karramarrotara joanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Koloreek ez dute alde egiten, oraindik ere **erreka-zuloko** freskuran baleude bezala. Pako Aristi

Behi bat umea egiten ikusi nahi nuen eta zezen bat behi baten gainean, lasterka joan **erreka zulora** eta galtzerdiak busti, eta garrasi egin, "Hi, putakumea!", eta oiloak ostikoka ibili eta baserritarren moduan hitz egin. Koro Navarro

Zure odolaz blai egingo dut lurra, mendi-gainetatik isuri eta **erreka-zuloak** ere beteko. Elizen arteko biblia

Esne urtsuaren tonua ematen dio ilargiak mendi hegal zabalari, margulagoa gailur aldean, biziagoa erdi aldeko harkaitzetan, apartsuagoa **erreka zulora** hurbildu ahala. Pello Lizarralde

Oso **erreka-zulo** ezkutua aukeratu zuten, seguru zeuden han, kasik bertaraino joan behar baitzen hura ikusi ahal izateko. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnon erreka (10); **arnon erreka ondoan** (6); **bere erreka** (4); **bi erreka** (3); **da erreka** (9); **den erreka** (7); **diat erreka** (3); **diren erreka** (4); **doneztebeko erreka** (3); **duk erreka** (3); **dut erreka** (6); **dute erreka** (4); **duten erreka** (3); **edo erreka** (5); **ere erreka** (4); **erreka aldera** (7); **erreka baino** (3); **erreka bat** (21); **erreka batean** (7); **erreka batek** (5); **erreka baten** (15); **erreka baten ondoan** (4); **erreka bazter** (5); **erreka bazterrak** (5); **erreka bazterrean** (13); **erreka bazterreko** (9); **erreka bazterrera** (5); **erreka bazterretan** (5); **erreka bezala** (3); **erreka da** (3); **erreka doneztebe** (4); **erreka edo** (5); **erreka ere** (3); **erreka ertzean** (7); **erreka ertzeko** (9); **erreka ertzetik** (5); **erreka eta** (32); **erreka eta ibaiak** (3); **erreka eta ibaietara** (3); **erreka ez** (3); **erreka gaineko** (3); **erreka garbi** (3); **erreka guztiak** (5); **erreka hegian** (4); **erreka hori** (5); **erreka horietako** (3); **erreka horren** (3); **erreka horretan** (5); **erreka igaro** (5); **erreka igarotzen** (3); **erreka ilun** (3); **erreka inguruko** (3); **erreka izan** (4); **erreka jo** (15); **erreka jo eta** (3); **erreka jo zuen** (3); **erreka joa** (3); **erreka joko** (9); **erreka jota** (4); **erreka jotako** (4); **erreka jotzeko** (4); **erreka jotzen** (3); **erreka kontratu** (4); **erreka laino** (9); **erreka lainoak** (3); **erreka ondoan** (18); **erreka ondoan dagoen** (5); **erreka ondoko** (18); **erreka ondoko harri** (3); **erreka ondotik** (4); **erreka pasatu** (3); **erreka ziztor** (3); **erreka zola** (4); **erreka zolan** (4); **erreka zulo** (10); **erreka zuloaren** (3); **erreka zulora** (4); **erreka zulotik** (3); **eta erreka** (47); **eta erreka ondoko** (3); **gero erreka** (3); **ibai eta erreka** (3); **iturri eta erreka** (3); **maddalen erreka** (5); **odol erreka** (3); **peko erreka** (3); **pixa erreka** (5); **ubago erreka** (3); **ubago erreka gaineko** (3); **ur erreka** (5); **zedron erreka** (4); **zen erreka** (8); **zered erreka** (3); **zihoan erreka** (5); **zuen erreka** (12)

arnon errekatik (7); **arnon errekatik jabok** (3); **baztan errekako** (7); **baztan errekako laxoa** (5); **egiptoko errekara** (3); **errekak eta** (5); **errekak gainezka** (5); **errekak zeharkatzen** (3); **errekako harri** (3); **errekako harri artean** (3); **errekako laxoa** (5); **errekako laxoa txapelketako** (3); **errekako ur** (4); **errekako ura** (7); **errekako urak** (5); **errekako uraren** (4); **errekako zubia** (4); **errekan bainatu** (3); **errekan behera** (7); **errekan edaten** (3); **errekan egiten** (3); **errekan erre** (3); **errekan erre zuen** (3); **errekan eta** (4); **errekan gaindi** (4); **errekan gora** (9); **errekan sartuta** (3); **errekara bezala** (3); **errekara bidean** (3); **errekara bota** (15); **errekara botatzea** (3); **errekara botatzen** (3); **errekara erori** (3); **errekara eta** (4); **errekara heltzen** (3); **errekara jautsi** (3); **errekara joan** (10); **errekara joaten** (4); **errekaren bazterrean** (4); **errekaren bestaldean** (4); **errekaren beste** (6); **errekaren bi** (3); **errekaren bihurgune** (3); **errekaren ertzean** (11); **errekaren gainean** (4); **errekaren gainetik** (5); **errekaren ondoan** (8); **errekaren ur** (3); **errekari hurbil** (3); **errekarik ez** (4); **errekatik hurbil** (3); **errekatik jabok** (3); **errekaz bestaldean** (9); **errekaz bestaldera** (8); **errekaz beste** (3); **eta errekak** (18); **eta errekako** (11); **eta errekan** (5); **eta errekara** (13); **eta errekara bota** (3); **eta errekaren** (9); **eta errekatik** (5); **eta erreken** (3); **eta zedron errekan** (3); **eta zedron errekara** (3); **iñ jabok errekaraino** (3); **kaweah errekaren** (4); **kixon errekara** (4); **laka errekaren** (3); **latsa ur errekaren** (3); **malko errekak** (5); **peko errekan** (3); **peko errekara** (8); **peko errekarat** (5); **santiago errekan** (4); **suzko errekak** (4); **ubago errekaren** (3); **ur errekak** (4); **ur errekaren** (3); **ur errekaren bazterrean** (3); **urritza errekan** (3); **zedron errekan** (3); **zedron errekan erre** (3); **zedron errekara** (4); **zen errekaren** (3); **zeuden errekaren** (3)

---

errekabide *iz* errekaren bidea.

Nola, ura **errekabideari** den jarraikitzen, opor egunek berdin denbora apur ari dire fidatzen. Herria

---

errekadista *iz* mandataria.

Guztiarekin, haurra bere esneaz elikatu nahi eta, bien bitartean, herriko **errekadista** (herritarrek hiriburuan zer behar, horixe egiten zuena) arduratu zen biberoiak ospitalera eramateaz. Patxi Zubizarreta

Errekadista , bestalde, ezkondua zegoen eta bi seme zituen: Joseba, eta hura baino gazteagoa den Dabid. Patxi Zubizarreta

Jendeak ez zekien emakumearen senarra ez, baina **errekadista** bera zela haurraren aita, Karmelorena hain zuzen ere. Patxi Zubizarreta

---

errekadu *iz* mandatua.

Bestea, Luisentzako **errekadu** bat, telefono numero bat; deitzeko, mesedez, astelehenean. Lourdes Oñederra

-Zein da dakarzun **errekadua** -bota zidan Mallonak. Edorta Jimenez

Mungiatik **errekaduak** eginda nentorrenean, esango eustan: [...]. Xabier Amuriza

Berdin ibiltzen zen, emakumeen kontuaren aldetik esan nahi dut, Atxuriko Tomasito, apur bat atzeratua zena, azokako dendarien **errekaduak** hara eta hona eramaten. Paddy Rekalde

Ordurako, alabaina, Xarrien hantxe libre utzia izan du, Suitzara bidean joango delakoan, eta bidean **errekaduren** bat -Jesus Galindezek sekula argituko ez duen **errekadua** - eroango duelakoan. Edorta Jimenez

---

errekaitatu *izond ipar* hornitu.

Gure apezak ere bere astoa zuela, eta, hark bezala ere, bere ateraldi zorrotzak zituela, erran komunez eta errefrauez hornituak eta **errekaitatuak**. Joan Mari Irigoien

---

errekaitu *(orobat **errekeitu**)* **1** *iz ipar* hornidura.

Zenbait **errekaitu** eman genizkien, ia horrekin konformatzen ziren. Jon Alonso

Errege Jaunak ezarri duen erreinuetan eta Erroman ere, zerbitzu handiak egin dizkizun gizona izan delakotz eta gorago igaiteko heina eta kardinale kargua jasateko doia **errekaitu** baduelakotz jadaneko. Piarres Xarriton

Arrakasta honen ondorioz, arratsalde partetik, txosna ainitz **errekaiturik** gabe egon dira: publikoari gure barkamenak egiten dizkiogu, eta 2004. ediziorako ernaiagoak izanen girela segurtatzen diogu. Herria

· Hango ura, kimikari onek behar bezalako **errekeituz** horniturik, kutsu tzar guzien kentzeko, ximenki prestatua bide da. Marzel Etxehandi

2 (hitz elkartuetan)

Garai haietan, menturazale, txerpolari, **errekaitu**-saltzaile, buhame, ijito eta mota guztietako petral saldoek mukuru betetzen zutela Amazonian sartzeko atari zen San Oximoron herria. Jon Alonso

Ondoren dendaren atzeko aldean desagertu zen, **errekaitu**-arsenal batez horniturik agertzeko berriz: kutxa, liburu, lupa, palmer itxurako metalezko tresna txiki bat... Jon Alonso

3 irud/hed

Gaixo Joanes nioen, baina deabruen **errekaitua** izana zen laurogei urtez. Itxaro Borda

4 arta, ardura.

Cultus laborea, laborantza da; baita zainketa, zaintzea, arta, **errekaitua** ere; eta janzteko era ere bai. Askoren artean

---

errekaize *iz* erreka haizea, hego haizea.

Ipar kaleko **errekaizea**, galerrenaren aizpia. Pello Zabala

---

errekalada *iz* lehorreratzea, porturatzea.

Eta **errekalada** egingo duzue kaioen uhartean. Joseba Sarrionandia

Errekalada luzea izango da, baina ez duzue isletako inorekin solasik egingo, jende izua delako, eta ez duzue arimen bila lehorrera inguratzen den txalupa zuriaren eta gringoaren elezaharra entzungo. Joseba Sarrionandia

Uhartera **errekaladan** heldu orduko, nostromoak tripulazioa bilduko du, saihestu beharreko arriskuen abisua emateko, daitezkeen istripuen zerrenda egiteko eta dokumentu bat sinarazteko. Joseba Sarrionandia

---

errekalde *iz* erreka aldea.

Ez da beraz harritzeko urak atera baitira lekuka, dela Hazparneeta Bidarteko zola batzuetan, dela beste toki askotan, eta gehienik haatik Urdazuriko **errekalde** hortan, Azkainen eta Senperen. Herria

Aise gehiago xahutuko da oraino Urdazuriko **errekalde** hortan berean bainan ere Untxineko aldean egitekoak dituzten beste obra batzuentzat, gisa hartako kontratua berme. Herria

Saul, amalektarren hiriburura hurbildurik, zelatan jarri zen **errekaldean**. Elizen arteko biblia

Errekaldean lizarra / Hari begira izarra. Patziku Perurena

---

errekalifikazio *iz* berriro kalifikatzea.

Fertiberiak, Lutxanako ekoizpena Avilesera eramango du, eta Sefranitoren pribatizazioan bost milioi eurotan ordaindutakoa 330 milioi eurotan salduko du, Udalak egindako **errekalifikazioari** esker. Berria - Ekonomia

---

errekamara *(orobat **errekamera** g.er.)* *iz* su arma baten kanoian, ahoaren kontrako aldea, zeinean karga kokatzen baita.

Astiro altxatu zuen errebolberra, eta, poltsikotik sei bala atera ostean, **errekamaran** sartzen hasi zen. Aritz Gorrotxategi

Beste bala bat sartu zuen Mauserraren **errekamaran**. Alberto Ladron Arana

-Putasemeak! -esan du poliziak sutan-, bala **errekamaran** sartuta zitean, tiro egiteko pronto. Rafa Egiguren

Kargadorerik gabe zegok, **errekamaran** ez dik balarik. Iñaki Iñurrieta

Errekamarari bueltak ematen hasi zen Alba. Aritz Gorrotxategi

Pistolaren **errekamara** eta kolpekaria zuzen zebiltzala egiaztatu zuen. Aritz Gorrotxategi

---

errekamera ik **errekamara**.

---

errekanbio *iz irud/hed* ordezkoa.

Ezin jasan ez amaren galdera arranguratiak -"eta orain nor arduratzen da zure arropaz? eta nork egiten bazkariak? eta...?"-, ezta izeba neskazaharraren ateraldi pozoitsuak -"utzan, neska, utzan, birigarro honi ez zaion luze joanen **errekanbiorik** aurkitu gabe"-. Aingeru Epaltza

---

errekano *iz ipar* errekatxoa.

Ainitzek askatik heldu dela diote **errekano** edo lasa bat ondoan pasatzen delako, bainan hor ere argi da HALTZAtik heldu dela izen hori. Herria

---

errekape *iz* errekaren behealdea.

Goitik behera errekara erori zen, airean kanpanbuelta bat egin eta suerte ona izan zuen ez zuelako **errekapea** buruarekin jo, eta suerte txarra izan zuen ze, erreka bazterrean bazegoen haurkotxe zahar bat eta, harekin egin zuen orkatilan ebakia. Pablo Sastre

errekaratu, erreka(ra), errekaratzen da/du *ad* errekara joan.

-Zela zirtzil batek ez dik gure adiskidetasuna **errekaratuko**. Aingeru Epaltza

· Baigorriko Pierre Semerenak bere bizia galdu du, ibiltzen zuen tresna uzkalirik eta **errekaraturik**. Herria

2 erreka jo, erabat hondatu.

Bankua, ordea, **errekaratu** egin zen. Gotzon Garate

Delako indarsuenek produkzioa emendatuko dutelarik beren mozkin berriekin, prezioak apalduko dira eta moda xahar naturalean ari diren laborari ttipien bizipideak **errekaratuko** dira. Herria

Sobiet Gorriaren Meka esaten zioten, hortik atera zenezake zenbateraino **errekaratu** den herri hau orain! Koldo Izagirre

Angelu Blancpignon-eko auzotar ainitzek uste dute postak nahitara dituela **errekaratzen** beren bulegoko zerbitzuak. Herria

Zer behar da pentsatu bilakaera hortaz? Lehenik ikusten dut hor datu baikor bat: ez dela gure herria erraiten dugun bezen eri eta **errekaratua**. Herria

-Ez da tokirik hiritar zintzoentzat; sasi abokatuez eta etxeko probetxu ari diren jendez osatu gobernua gure erresumaren **errekaratzen** ari da. Elena Touyarou

-Zela zirtzil batek ez dik gure adiskidetasuna **errekaratuko**. Aingeru Epaltza

3 ***beheko errekaratu*** da/du *ad* erreka jo, erabat hondatu.

Familia hura **beheko errekaratu** zen, Ithurbide zaharra, Bittorren aita, atsekabez hil zen; haren emaztea eta haurrak mugaz haraindira joatera behartuak izan ziren, Bera herrira, han ahaideak baitzituzten. Elena Touyarou

Hilabeteak joan ziren, eta bere mehatxua gauzatu zuen: Ithurbidetiarrak **beheko errekaratu** zituen, eta herriaren abandonatzera behartu zituen. Elena Touyarou

Aitari halako errespetua zion, halako beldurra, non ezin izan baitzion deus erran jakin zuelarik entseatzen zela, eta lortzen zuela, Ithurbidetiarren **beheko errekaratzera** eta, Saratik lekutzera behartuko zituela. Elena Touyarou

---

errekaratze *iz* erreka jotzea, erabat hondatzea.

Bakarrik diru zerbait baztertu zutenak salbatzen ahalko ziren **errekaratzetik** eta gosetetik. Elena Touyarou

Alabaina Reims-eko taldearen **errekaratzeak** bazterrak inarrosi ditu, eta ondorioz talde guziei txosten bat galdatu die federazioak. Herria

---

errekardari *iz* herriz herri hainbat gauza saltzen dabilen pertsona, eskuarki haien prezioa eztabaidatzen duena. ik **txerpolari 4**.

Errekardaria izan behar zuen, mandatuakaz. Koldo Izagirre

Ahoa bete hagin gelditu ziren denak, beti zeukan uste baino handiagokoren bat Cienfuegos **errekardariak**. Koldo Izagirre

Kafea sutan ipini zuen txabolan **errekardariaren** atzetik sartuta. Koldo Izagirre

Altxa egin zen arrantxeroa, ikara emoten zuen batzuetan **errekardariak**. Koldo Izagirre

---

errekardaritu, errekardari(tu)m errekardaritzen du *ad* prezioa eztabaidatu.

Aldameneko mahaietan, jendeak, zalaparta handiz, hitzetik hortzera zerabiltzan Zuninok eta Zungrik, **errekardaritu** gabe, hartarako jarriak zituzten dirutzak. Juan Garzia

---

errekardaritza *iz* salgaiaren prezioa eztabaidatzea.

Nik eskatutako soldata -berrogeita hamabost koroa eskas, astean sei orduengatik- bost koroa gutxitu zidatek **errekardaritza** eginda. Anton Garikano

Merkatariak gogotik aritzen ziren **errekardaritzan**. Jose Morales

Ez da lan gozoa antzinako eran salerostea, **errekardaritzan** jardunez, nahiz ohitura horrek, arabiar herrietan, arkitekturaren logika berari erantzuten dion: prezioak gezurrezko fatxadak dira, eta elkarrizketa sigi-saga eta itsumustuka saiatzen da misteriora -produktuaren benetako preziora- iristen. Bernardo Atxaga

Salneurria ere izutzekoa eskatu zuen, jakina, eta Héracliusek **errekardaritzatan** ibili gabe ordaindu zuen. Josu Zabaleta

---

errekarga *iz* berriro kargatzea.

Akuiferoak agortzea arazo berri bat da, punpa elektriko eta diesel indartsuak erabiliz lurpeko ura berezko **errekarga**-tasa baino erritmo bizkorragoan ateratzeak eragindakoa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Uraren erabilerak gora egin du, akuiferoen **errekarga**-gaitasunetik izugarri gora gainera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

errekargo ik **errekargu**.

---

errekargu *(orobat **errekargo**) iz* pagatu behar dena handitzea.

Izan ere, merkealdian erosi izanagatik, ez da inongo **errekargurik** izan behar kreditu txartelarekin ordainduz gero. Berria - Euskal Herria

Dena den, **errekargo** kopuruen arazoa oztopo handia izan da negoziazioetan. Berria - Ekonomia

---

errekarri **1** *iz* errekako harria.

Errekarri zuria, lehor; ozta han-hemenka ur xirripa urri batzuk hondartza aldera isuri. Txillardegi

Hartu zuen eskuan bere makila, bost **errekarri** leun-leun aukeratu eta artzain-zorroko sakela batean gorde zituen. Hartu zuen habaila beste eskuan eta filistearraganantz hurbildu zen. Elizen arteko biblia

Nemesiorentzat inor baino gehiago diren hiru harri han daude: berrehuneko zilindroa, ehun eta laurogeiko kubikoa, eta **errekarri** trinko-zaztar bat, batez beste hamabi arroa inguru dituena. Pako Aristi

Eternitate osoa **errekarriarena** egiten? Harkaitz Cano

2 (etorkizunaren iragarle gisa)

Errekarriek diotenez, beti elkarrekin egongo gara gu hirurok, behin eta betiko.-Badakit! -esan zuen, eta ibaian tente jarri eta eskukada **errekarri** txiki bildu zuen-. Ijitoei ikusi eta ikasia diet. Mirentxu Larrañaga

- **Errekarriei** eragin zien, katilu-itxuran tolestuak zituen esku artean, eta begiak itxi, eta ibai-ertz lohitsurantz barreiarazi zituen. Mirentxu Larrañaga

---

errekasoinu ik **erreka 7**.

---

errekasta ik **arrakasta**.

---

errekasto *(ETCn 838 agerraldi)* *iz* ur korronte txikia. ik **errekatxo**.

Zeharkatu dut **errekastoa**, agureari jaisten laguntzeko doi bat makurtu naiz, eta "Jaitsi zaitez" esan diot. Patxi Zubizarreta

Errekastoak guztiz gainezkatzen zuen zubia, eta haren gainetik igarotzen zen, ibaia harri baten gainetik igarotzen den erraztasun berberaz. Aitor Arana

Sartalderantz **errekasto** bat bada, nik eskuz arrantza egiteko egokia. Juan Garzia

Hango mendietan jaiotako **errekasto** bat besterik ez zen, zuhaitzarte batean urmael moduko bat eratzen zuena, eta bertan bainatzen nintzen goizero. Xabier Mendiguren Elizegi

Euria egin du, **errekastoak** oldarrean datoz. Oskar Arana

Garagar eskukada bat zabaldu zuen **errekastoaren** bazterretan, eta garagarra berehala erne zen, eta hazi. Patxi Zubizarreta

Harmaila batzuetan gora egin, eta ur iluneko **errekastoa** aurkitu zuen. Agustin Otsoa

Pedrok korrika segitu zuen, estolda sareko **errekastoan** sartuta. Jon Maia

Hildako arrain txikiak galtzada bazterreko **errekastoan** jartzen zituen, urak eraman zitzan. Karlos Zabala

Atarira atera nintzen, ilargia ia betea, hego-haize epel-epela, **errekastoaren** murmurioa, kilkerrak, belar-usaina. Joxean Sagaztizabal

Tximistek, noizbehinka, bidea argitzen dute, eta ura lurraren **errekastoetatik** nola doan ikusten dut nik. Pako Aristi

Errekastoko ur leiar, inozo, jostalaria; ibaiko ur arre, jeloskor, salataria. Felipe Juaristi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Herriko kalea, Getariako portua, han behean dituk, eta gure borda, berriz, han goian, **errekasto** garbi baten ertzean. Edorta Jimenez

Han, mendi zintzur basak, **errekasto** zalapartatsuen pasabideak. Karlos Zabala

Arekatik **errekasto** distiratsu bat igarotzen zen, belar-pusken eta sorgin-belarren artetik. Lopez de Arana

Tanta bat bisaian beheiti lasterkatu zen, **errekasto** mehe bat eginez nire larruazalean zehar. Aingeru Epaltza

Ural mendietako aldapetan behera jaistea besterik ez zeukaten Jekaterinburgera sartzeko, eta egoera hartan jaistea, mila **errekasto** lasterrek zeharkaturiko lurralde batean, ur eta haize zurrunbiloen erdian, bizia galbidean jartzea baizik ez zen. Karlos Zabala

Magaletan argi ikusten dira noizbehinkako **errekastoen** markak. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Metaturiko muskuilu zakuetatik ur **errekastoak** isurtzen ziren. Karlos Zabala

· Barrearen barreaz begietatik malko-**errekastoak** zerizkiela, autotik jaitsi ziren, hotelera iritsita. Lopez de Arana

Ustezko irudi maltzurra pusketa txikien atzean birrindu eta Ferminen eskua odol-**errekastoetan** itotzen hasi zen. Jasone Osoro

4 irud/hed

Haien atzean, limusinak, turismoak, ibilaldi turistikoetarako autoak eta sedanak herrestan zebiltzan, sigi-saga errepidean zehar, autoen argiak bi **errekasto** baretan antolaturik. Lopez de Arana

Broadwayren isla distiratsuak bizkarrei itsatsita, jende-**errekasto** etengabeak igarotzen ziren agurearen aurretik. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errekasto bat** (10); **eta errekasto** (3); **eta errekastoak** (3)

---

errekategorizatu, errekategoriza(tu), errekategorizatzen du *ad* berriro kategorizatu.

Pertzepzio bakoitza sorkari bat da; oroitzapen bakoitza, ber-sorkari bat: oroitzea harremana ezartzea da beti, generalizatzea, **errekategorizatzea**. Xabier Olarra

---

errekategorizazio *iz* errekategorizatzea.

Tartean finkapen, fosilizazio edo harrizko bihurtzeko indar bat dagoela ohartzen da bat, **errekategorizazio** edo berrikusketa-prozesu normaletatik erabat etenda-edo, daudela oroitzapenok. Xabier Olarra

---

errekatto *iz* errekatxoa.

Begira egiozu **errekatto** batean, urareran joairari, eta tankera bakoitzean bere soinua ateratzen dizu. Patziku Perurena

---

errekatxo *(ETCn 358 agerraldi)* **1** *iz* errekastoa.

Uraren hotsa entzun zuen Harryk; handik hurbil **errekatxoren** bat egongo zen. Iñaki Mendiguren

Errekatxo bat igarotzen zen leihoaren azpian; iruditu zitzaidan gau osoan aritu zela etxea miazkatzen, lo hartu nuen arte. Koro Navarro

Ur freskoa eta isila zihoan han inguruko **errekatxo** batean. Patxi Ezkiaga

Autoa ozta-ozta kabitzen zen **errekatxoaren** zubian. Bernardo Atxaga

Oilasko errea, **errekatxoan** bildutako berro entsalada, ilarrak arrautza egosiarekin. Koldo Izagirre

Pirinio inguruko basoetara joaten naiz, hango **errekatxoetan** amuarrainak harrapatzera. Berria - Kirola

Peppone goardian dago aparatuarekin **errekatxo** bazterrean, eta ni kanalean nago goardian aparatuarekin. Koldo Biguri

Florentzia txiki-txiki bat ematen du, **errekatxo** argi, harritsu, marmarrari eta ur biziko baten ertzean kokatua. Koro Navarro

Haize erauntsiek kaleko harlauzen gainera jaurtikitako ur parrastek **errekatxo** lasterrak sortzen zituzten espaloi bazterretan estolda bila. Josu Landa

Bazela Lajosengan indar-iturri misteriotsu bat, zenbait **errekatxok** dutenaren parekoa, mendien barrunbeak zeharkatu eta, gero, aztarnarik utzi gabe hartzulo sakonetan galtzen diren **errekatxo** bihurri horien modukoa alegia. Ander Irizar

2 irud/hed

Orain sartu eskua gonaren azpitik eta ukitu hemen, sentitu nahi dut, sartu kuleroaren azpitik, ferekatuidazu **errekatxoa**. Karlos Zabala

Handik gertu garnaxa-**errekatxo** bat dator, denik eta edateko garnaxarik onena, ur tantarik bat ere gabea. Berria - Kultura

---

errekaxka *iz adkor* errekastoa.

-Odol-besta hau prestatu dutenei ez zaiek gogoratu morfina beharko genuela. - **Errekaxka** ñimiño bat abiatu zaio begietan beheiti-. Aingeru Epaltza

---

errekazulo ik **erreka 9**.

---

errekeitu ik **errekaitu**.

---

errekerimendu *iz* errekeritzea, hertsatuz eskatzea.

Aralarreko Iruñeko zinegotziek udaletxeko bulegoan zuten ikurrina eta masta berreskuratzeko eskaera ofiziala **errekerimendu** baten bidez aurkeztu zuten, atzo, udal erregistroan. Berria - Euskal Herria

Administrazioari dagozkion sei kasuei, berriz, **errekerimendu** baten bidez eman zaie irtenbidea. Berria - Ekonomia

Erasotzailea nire **errekerimenduari** men egiten ari zela uste nik, okerragoaren atari zela ohartu gabe. Aingeru Epaltza

Hik egun horietan autobideko lapurketez argitaratutako informazioak erabakigarriak izan omen zituan Ripodasek Soriaren **errekerimenduei** amore ematerakoan. Aingeru Epaltza

Isilik geratu ginen, unibertso osoa geratu zen isil eta geldirik, itsas txorien karranka urrunak edo bertako umeen **errekerimendu** ozenak gorabehera. Xabier Mendiguren Elizegi

---

errekeritu, errekeri(tu), errekeritzen du *ad* legearen izenean edo hertsatuz eskatu.

Jaunari bere epaitegian jartzen bazitzaion auzia -feudoari zegozkion arazoetarako bakarrik izaten zen hori-, epe guztiak iragaiten utzi ondoren, jende zintzoaren aurrean **errekeritzen** zen jauna eta goragoko jaunaren bidez **errekeritu** ere, zeinengandik baimena jaso behar baitzen. Iñaki Iñurrieta

---

errekesta ik **arrakasta**.

---

errekestatsu ik **arrakastatsu**.

---

erreketa **1** *iz* erretzea.

Milaka dira [...] gizakion espiritu inkisidoreak eragin dituen suntsiketak, **erreketak**, txikizioak, hilketa eta salaketak, kartzela-aldiak, desterruak, pertsekuzioak, torturak. Anjel Lertxundi

Gerizarik gabeko eme-mundu horrek gaitzeko sarraskiak pairatu zituen: bortizkeria, bortxaketa, ebasketa, ohointza indartsu, **erreketa**, suntsiketa. Itxaro Borda

Orain arteko legeek ere kristautasuna hartu dute aintzat heriotzarekin lotuta dauden arlo guztiak arautzeko, hala nola hilkutxak, hilotz garraiatzea, **erreketa**, ehorzketa, hileta enpresak, beilatokiak eta hilerriak. Berria - Harian

Erreketaren berri zehatza zekarren informazioak, baina argazkian ageri ziren etxe-multzo baten hondakinek harritu egin ninduten: ez ziruditen **erreketa** normal batek eraginak, ematen zuen zerutik erori zela sua etxe haien gainera. Anjel Lertxundi

Jendea irainka eta joka kalean, kutxazain automatikoen eta autobusen **erreketak** egunero. Mikel Hernandez Abaitua

Morroilo gainean zegoen gedarraren azterketa zehatzak garbi erakutsi zuen atea ez zegoela morroilotua **erreketa** gertatu zenean. Gotzon Garate

2 (tabakoarena)

Guk gauero egiten duguna, baina zurruta, **erreketa** eta bat-batean euren bizitza konpondu nahia nahastuta! Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Naziek, beste hainbat kontzentrazio-esparruetako sistema bera aplikaturik, **erreketa**-gune bat ere eraiki zuten arroza zuritzeko eraikuntza hartan. Anjel Lertxundi

Donostiaren **erreketa** garaiko trasteak. Iñaki Iñurrieta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Astebete iraun zuten liskarrek, eta auto **erreketak** eta kale kalapitak nonahi piztu ziren aldi horretan. Seriotasuna zen zeremonia guztiaren ezaugarri bereziena; edanean barrezka ibili ohi ginen beti edo eskuarki, eta porru-**erreketan** aldiz serioa zen gure jarrera, ekintza debekatuak halako zerbait eskatzen zuelakoan. Hasier Etxeberria

Orduak entzuten genituenean, bagenekien Pitxita gure astoa lotzeko ordua zela, haizebelastu baino lehen; garbiketa egiteko ordua, gero arropak lehortuko baitziren; atzendu beste baterako sasi **erreketa**. Pako Aristi

Tropiko aldeko baso-**erreketak**. Pello Zabala

Haren belarriek entzunak zituzten juduei buruzko istorioak, iritsia zen harengana arrazakide-**erreketaren** berri, baina bata da entzutea eta bestea ikustea: eskuz ukitzea. Felipe Juaristi

---

errekete *iz* karlisten erakunde militarreko kidea.

Frecce neri italiarrak eta Nafarroako IV. Brigadako **erreketeak** hogeita bederatziaren eguerdi aldean sartu ziren herrira. Lutxo Egia

Erreketeak Nafarroatik sartu zirenean, aitaren batean iritsi ziren gure auzora. Juan Kruz Igerabide

Hiru **errekete** heldu ziren, fusilak eskuan urduri. Joseba Sarrionandia

Aurrena zetorrenak **erreketeen** txapel gorria janzten zuen. Alberto Ladron Arana

Horrela inguratu ginen arrats batean, lau hankatan makurturik, sasi eta lokatz artetik, **erreketeen** kanpamendura. Joseba Sarrionandia

Ezertaz ohartu zirenerako **erreketeen** fusilamendu-pelotoi bat zuten aurrean. Berria - Kultura

Txatoren aita **erreketeetan** ibilia zen. Koldo Izagirre

Erreketekoak zirela esan zuen. Ramon Saizarbitoria

Goizeko ordu biak zirela, **erreketez** betetako kamioia iritsi zen. Berria - Harian

Caparroson, irakasle naizen herrian, 80 herritar fusilatu dituzte **erreketeek**. Berria - Kultura

1936ko kolpisten oinordeko politikoek XXI. mendean **erreketeen** laguntza izanen dute. Berria - Euskal Herria

Hiru erakunde tradizionalista sortu zituzten karlismoaren mistikarekin: **errekete** auxiliarrena, margaritena eta pelaioena. Joseba Sarrionandia

Atzetik guardiako **erreketeak** zetozela ohartu ginenean. Joseba Sarrionandia

Diktadorearen guardia pertsonala nafar **erreketeek** osatuko dute. Edorta Jimenez

Errekete talde handiak etzaten ziren bazterretan atseden bila. Joseba Sarrionandia

erreketetu *izond* errekete bihurtua.

Nork du Jose Artetxe soldadu **erreketetuaren** memoria mindua zeru eternoan laketu gura "Un hombre de paz" deituta? Iñigo Aranbarri

erreki *iz* okela errea.

Astelehena 25: 10.00etan herritarren meza, aperitifa eta **errekiak** Baigura kartierean. Herria

Garaziko elkarteak ttattoletan bilduko dira, pintxoak, taloak, **errekiak**, edateko baita etxe ekoizpenak jastatzeko parada emanez. Berria - Kultura

Gaueko jaki-edaki-**errekiek** eraginda, aipatutako begitazio miragarria izan zuen eta bizipen haren ondorioz argia ikusi eta bizitzan bestelako jokabidea hartu behar zuela ohartu zen. Jon Arretxe

Urte betez ahaide hurbilenek beren etxeetan edukitzen dute, uzta guztietako hasikinak eta **erreki** opariak eskainiz. Patziku Perurena

Hau bururatuko dela xerri **errekia** jastatuz, segurtatzen dauku Henrieta Auxoteikoak. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aperitifa eta errekiak (3); **eta errekiak** (4)

errekilar *iz* babarruna.

Indaba deitzen diote toki askotan babarrunari edo **errekilarrari**, babak Indietatik, alegia, Ameriketatik etorriak direla salatu gabe salatzen. Iñigo Aranbarri

errekin *iz* erregaia.

Mutikoak [...] gogor eragin zion balaztari, alegia, sakelean zeraman mailuari: **errekina** zekarten laguntzaile uniformedunak inguratu zitzaizkion; hizketan aritu zen agurtzera etorritako sugile batekin, eta berriz ere martxan jarri zen lokomotorra. Koro Navarro

Sua itzaltzen lagundu beharrean, gasolina eta **errekinak** botatzen ari nintzen! Anjel Lertxundi

1986ko petrolioaren kontraerasoaren ondoren, petrolioaren benetako prezioa 1973ko aurreko mailara itzuli baitzen orduan, **errekinen** ehunekoa munduko merkataritzaren %10 izatera igaro zen berriz ere Koro Navarro

errekindegi *iz* errekin biltegia.

Hutsik dagoen **errekindegi** bat hautatu zuten aldarria egiteko, eta etxebizitza sozialen behar gorria azpimarratu zuten. Berria - Euskal Herria

errekisa *iz* agintaritza jabetzea pribatua den zerbaitez.

Proposatzen ziotenak ez zeukan **errekisarekin** zer ikusirik; ez zen ejerzitoa egiten jabe, baizik eta halako sujet partikular bat, Carlos Degrela Villabaso. Bernardo Atxaga

Valeriano Neira-ren lurperatzea izan zen, ezusteko tiroketan hila **errekisa** bat egiten ari zela Hernaniko Banco Guipuzcoanon. Koldo Izagirre

Errekisa txukun bat egiteko asmoan hartu genuen zenbait lagunek noizbait Eibarrera, kanoiak behar genituen gure baforeak artilatzeko. Koldo Izagirre

Elena Andreievna ederra, Serebriakoven emaztea, gosez eta hotzez hil zen 1918-1921 arteko gerra zibilean, eta urte horietako batean fusilatu zuten Vania, **errekisarako** garia ezkutatzeagatik. Iban Zaldua

errekisatu, errekisa(tu), errekisatzen *(orobat **errekisau** g.er. eta **errekisizionatu** g.er.)* du *ad* errekisa egin.

Arropak **errekisatu** dizkiogu eta ez dugu ezelako agiririk topatu. Joseba Sarrionandia

Legeak ahalbidetzen du bizileku hutsak **errekisizionatzea**. Berria - Euskal Herria

Haren ziegaraino joan eta distira egin zezakeen guztia **errekisatzeko** agindu nuen. Koldo Izagirre

"Non **errekisaturiko** pistola?", eta berak, kuartelean noski. Iñaki Iñurrieta

Etxe hartako altzariak **errekisatuak** izan ziren, Jeneralak Donostian udarako zeukan jauregia janzteko. Koldo Izagirre

Arropak **errekisatu** dizkiogu eta ez dugu ezelako agiririk topatu. Joseba Sarrionandia

-Ez utzi pipa zurdoari -egiten du Godotek-, kapaz duk **errekisatzeko**. Iñaki Iñurrieta

errekisau ik **errekisatu**.

errekisizio *(orobat **errekizizio**)* *iz* errekisa.

Eskakizunak kantuz eta mutxikoak dantzan eman ondoan manifestaldi koloretsua osatu dute karriketan, Suprefetura aitzinean salatu dituzte prefetak burutzen dituen emaginen **errekizisioak**. Herria

Jandarmek lanean ari diren emaginei **errekizizio** berriak presentatu dizkiete, inori baimenik galdatu gabe eta gelan sartzeko beharrezkoak diren soinekoak jantzi gabe. Herria

errekisizionatu ik **errekisatu**.

errekistatu ik **erregistratu**.

errekitu *iz* errekaitua.

Bi **errekitu** haiek, Xaxi eta Pierrak alegia, ez zuten bihar etsian ene biziaren trabatzera jin beharko! Itxaro Borda

Holako **errekitu** atrebituen arrazoinamendua hauxe da hiru pondutan: 1 ETA-koak terrorixtak dira 2 ETA-koak euskaldunak dira 3 Beraz, euskaldunak terrorixtak dira! Eta jo aintzina! Herria

errekizizio ik **errekisizio**.

erreklama *iz ipar* publizitate iragarkia.

Abenduan, esnetegien okupazioekin batera, justuki Ossau-Iraty sor-markaren **erreklama** ikus genezakeen telebistan. Itxaro Borda

Evin legea aldatua izana da joan den astean Lege Biltzarrean eta, beraz, arno bakoitzak egin dezake bere **erreklama**, orai artio onartua ez zena. Herria

Evin minixtro ohiaren legeak debekatzen zuen **erreklama** egitea arnoaren alde. Herria

Telebixtak berak nolako **erreklama** ez dio egiten funtsean! Herria

Ikusi ditugu ere telebixtan gasna **erreklama** batetan zonbait astez Larzabaleko gasnategian egiten duten“ Ixtara” laudatzen eta bereziki Goienetxeko Ramuntxok aktore pollita egiten zaukun. Herria

Gaitzeko **erreklama** eginen da bestalde egunkarietan, irrati eta telebixtetan bai eta Internet sarean. Herria

erreklamatu, erreklama(tu), erreklamatzen **1** du *ad* norbaitek eskubide duena eskatu; irmo eskatu.

Beren mahuka kolorezkoak **erreklamatuko** zigula, zilarbizitan zein urdaitan, ehuneko 10eko neurrian, hurrengo bisitaldian. Juan Garzia

Eta nork esan dizu bazenuela eskubidea niri zerbait **erreklamatzeko**? Matías Múgica

Paper bat zabaldu zuen nire aurrean, zeinean esaten zen ez nuela inolako eskubiderik printzeari ezer **erreklamatzeko** eta nire burua lotzen nuela ez berriz saiatzeko printzea ikusten. Matías Múgica

Tokian tokiko ehiza barrutietara zuzentzen ziren aseguru etxeak basurdeek edo orkatzek eragindako auto istripuen kalteak **erreklamatzeko**. Berria - Euskal Herria

Inork ez bide zitinan **erreklamatu** eta tanatorioak Unibertsitateari eskaini zizkionan ikasleek erabil zitzaten. Harkaitz Cano

Zerbitzu sekretuek aditzera eman zuten hegazkinetako bi bidaiari ikertzen ari zirela, emakumezkoak eta txetxeniar jatorrikoak, eta senideek ez zituztela beren gorpuak **erreklamatu**. Berria - Mundua

Hau aitasantutzak **erreklamatzen** zuen Erromatar Inperioaren eliz oinordeko zen aldetik. Iñaki Mendiguren

Pinguinoa ernegatu eta idazlearen atzean etorriko da kanpamenturaino, protestaka, oso haserre, eta hor izango da luzaroan, kanpamentuaren ertzean bere arraina **erreklamatzen**. Joseba Sarrionandia

Eta **erreklamatzen** ez baduzu ez dizute aitortuko. Berria - Ekonomia

Lapurketaren salaketa bera ere egin gabe zuelarik, pentsa zer-nolako argibideak eman beharko zizkigun, atsoa **erreklamatzera** etorriz gero! Aingeru Epaltza

Badut eskubide atzendu gaberik erresuma honen gainean, eta abaguneak nau orain haiek **erreklamatzera** bultzatzen. Juan Garzia

Geroztik, Printzesa hura ez da kontent, eta maiz jiten da bere dotearen **erreklamatzerat**, haize hegoaren irudia hartuz. Patziku Perurena

Aski nuen, leherketa baino lehen, telefonoz beste erakunde edo norbaiten izenean, atentatuaren jabetza **erreklamatzearekin**. Hasier Etxeberria

Kristautasuna bere doktrina hizkera arrazionalean adierazi ondoren, ezin zen geratu arrazoimenaren bidezko eremuan sartzen ziren jakintza-arloen gain agintea **erreklamatu** gabe. Iñaki Mendiguren

Edozein bulegotan egon zitekeen, zerbait eskatuz, **erreklamatuz**, protesta eginez, edo, besterik gabe, administrazioan barkamena eskatuz, programan zerbaitek huts egiten zuenean beti egin behar izaten zuen bezala, bere ardurapeko kontua izan edo ez. Jon Alonso

2 ***erreklamatzearren*** erreklamatzeko.

Behar zutela bipilki zin egin elizgizonak zirela, erregearen jendeari itzuri eta Elizaren justizia **erreklamatzearren**, eta, hartarako. Juan Garzia

Ba omen zen neska bat bere gurasoek Sevillatik Epaitegiaren bidez **erreklamatua**, eta beste bat bidali zuten, haren antza zuena. Josu Zabaleta

Xaharrak bakartasunean hilak, gero "frigoetan" metatuak, azkenik hainitz nehork ere ez eskatu edo **erreklamatuak**! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erreklamatzen ez (4); **gorpuak erreklamatu** (3)

erreklamazio **1** *iz* erreklamatzea.

-Jakina, berehala egin nuen **erreklamazioa**, eta zer uste duzu erantzun zidatela? Anton Garikano

Erreklamazio bat egin eta joan dun. Anton Garikano

Erlijio nagusien ezaugarri berria zera zen: leialtasunaren **erreklamazioa** beren profetek hartu omen zituzten errebelazio pertsonaletan oinarritzen zutela.-Jakina, berehala egin nuen **erreklamazioa**, eta zer uste duzu erantzun zidatela? Iñaki Mendiguren

Pobreziagatik zorra zerekin ordaindu ez zuenez, zaldunaren **erreklamazioz** preso hartu zuten. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Geroko **erreklamazioei** uko egiteko agiria izenpetu bezain laster, konpainiako abokatuek hamabi mila eta bostehun dolarreko txeke bat eskuratuko didate. Lopez de Arana

Esan beharrik ez da arauzko geldialdiak egin egin zirela, zeren "horrela egin ezean -Nikolasek zioenez-, zaldiak bidezko **erreklamazioren** bat aurkezteko eskubidea zuen". Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Bezero batek zigarreta piztu zuen erre ezin zitekeen gune batean, eta beste gizon batek **erreklamazio orriak** eskatu zituen. Berria - Euskal Herria

Duela hamar egun eskas, borreroari **erreklamazio-orriak** kondenatuen eskueran (edo haiek ikusteko moduan, behintzat) jartzeko agindua iritsi zitzaion Ministeriotik. Karlos Linazasoro

Orain **erreklamazio** zerbitzua ere badaukazue? Harkaitz Cano

Hau ez dun **erreklamazio** liburua eskatzeko unerik aproposena. Patxi Iturritegi

· Gizarte-**erreklamazioa** asetzeko Hamurabiren lan neketsua laster urperatu zuen mendietako kasiten inbasioak. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erreklamazio bat (3); **erreklamazio orriak** (3); **erreklamazioa egin** (3); **zuen erreklamazioa** (3)

erreklamo *iz* hegazti bat harrapatzeko erabiltzen den hegaztia edo hegazti modukoa.

Eskopeta zein **erreklamoa**, sarea nahiz zepoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala zen, kardantxilo talde bat gora eta behera ari zen, zelaia inguratuz, **erreklamoa** zegoen tokirantz. Jon Maia

Hoditxo hauetan makilak sartu eta gure **erreklamoa** zuhaixkatik tarte batera jarriko dugu, txoritxoak kanta dezan. Jon Maia

2 irud/hed

Bazen **erreklamo** antzeko bat nire anaiak erabiltzen zuena ni erakartzeko: igelen korroka. Pello Lizarralde

3 erakartzeko baliabidea.

Baina firma komertzial nagusien dendetako **erreklamoetatik** bi kale aurrerago dago Einaudi argitaletxearen liburu-denda nagusia, eta bertan sartu naiz mendeku txiki apal bat buruan nuelarik: azken nobedadeen farfaila atzean utzi eta fondoko liburuen bila hasi naiz. Berria - Kultura

Komaien kalakak, **erreklamo** hotsak, hizketaldi laburrak. Pablo Sastre

Fetitxismo guztiak uxarazteko modukoak dira Hemingwayren itxura onkotearen **erreklamora** eskaintzen dizkidaten plateren prezioak. Anjel Lertxundi

Oraindik ere europartzeari eta globalizazioari gaur egun egokituko zaizkion euskal identitate berrien **erreklamoak** daude jokoan. Joseba Zulaika

4 erreklamazioa.

Hark udaletxean egin du **erreklamoa** eta. Pablo Sastre

---

erreklasamendu *(orobat **erraklasamendu**) iz ipar* lan sailez aldatzea.

Adinduenek, aitzin-erretretaz gozatuz, erretreta berrogeita hamahiru urtetan har zezaketen; besteek bi urte bazituzten lan baten harrapatzeko, SOR **erreklasamendu** zelulak formatzen eta bilatzen laguntzen zituela. Itxaro Borda

Astelehenean, lantegi zerratuaren aitzinetik pasatzekoa zen SOR enpresak kudeatzen zuen **erraklasamendu** zelulara joateko: hogeita hamar urte Etxarrin ari izan eta adina zuena lanez aldatzeko? Itxaro Borda

---

errekluta *(orobat **errekruta**) iz* soldadugaia.

Errekluta [...]: Zibiletatik uniformeak eta soldaduetatik ibilerak bereizten duen pertsona. Xabier Olarra

Bataioaren sarbide-errito kristaua erromatar armadan sartzerakoan **erreklutari** eskatzen zitzaion zin-egite militarrarekin [...] parekatzen du San Ziprianok. Iñaki Mendiguren

Zoritxarrez, arrats hartan bertan itzuli behar nik Thunera, neure **erreklutengana**. Joxe Austin Arrieta

- **Erreklutei** errebista pasatu beharko diek? Aingeru Epaltza

Gymnasiumera bidean, udaletxeko atarian gelditzen ginen **errekruten** deialdi-taula begiratzeko. Anjel Lertxundi

---

erreklutamendu *(orobat **errekrutamendu**) iz* erreklutatzea.

Azken akemenestarrek egin zuten greziar mertzenarioen indar profesional mugikor baten **erreklutamenduak** Alexandro Handiak Akemenestarren Inperioa hartzea ekarri zuen. Iñaki Mendiguren

-Hiru egun -esan zuen ahapeka-, eta Rohango gizonen **erreklutamendua** apenas hasita. Agustin Otsoa

Areago -Ernest Hemingwayk amestu legez dio Carlos Bakerrek-, haren **erreklutamenduak** gizarte-adar askotakoak batzen ditu, hasi bere lagun jai-alai jokalariekin eta Don Andres Untzainekin amaitu. Edorta Jimenez

Erreklutamendu zentro horretara joandako lagunen artean bere burua zartarazi zuen lehergaiz josita zegoen ekintzaile suizida batek. Berria - Mundua

1967 urtean Cassius Clay, munduko kanpeoia zela, Vietnamgo gerrarako **erreklutamendu** txartela hautsi zuela eta, preso edo baztertuta egon zen zenbait urtez. Joseba Sarrionandia

---

erreklutatu, errekluta(tu), erreklutatzen *(orobat **errekrutatu**)* **1** du *ad* pertsonez mintzatuz, armadarako edo talde armatu baterako bildu.

Erresuma Batuko Armadak Brian Nelson paramilitar ohia informatzaile gisa **erreklutatu** zuen, eta UDA Ulster Defendatzeko Elkarteko kide egiteko eskatu zion. Berria - Mundua

Nazio Batuen Erakundearen haur soldaduen ituna sortu da, desmobilizazio egitasmoak eratu dira hainbat herrialdetan eta haurrak **erreklutatzen** dituztenak legez jazartzeko bidea ireki da. Berria - Gaiak

1914an **erreklutatu** zutenetik, Flandesen eta Frantzian egon zen soldadu. Berria - Kultura

Armada oraindik borondatezko izen-ematearen bidez **erreklutatzen** zen garaian. Iñaki Mendiguren

Terroristatzat jotzen diren erakunde armatuen portzentaia handi batek giro horretan **erreklutatzen** dute jendea. Berria - Harian

Armada inperialeko unitateetan, nonahi **erreklutatuak** eta nonahi ezarriak zirela ere, aginte militarraren hizkuntza bakar bihurtzearekin konformatu ziren. Iñaki Mendiguren

Metrailadore-deskarga batez akabatu zuen harakin-haur bidutzi batek, Salò-ko errepublikak erreformatorietan **erreklutaturiko** hamabost urteko morroi asturugaitz haietariko batek. Juan Garzia

Tamil tigreek, ordea, ukatu egin dute adingabeak indarrez **errekrutatu** izana. Berria - Mundua

Reaganek kontraiaultza sostengatu zuen, nagusiki guardia somozistako kide ohiek eta indarrez **errekrutatutako** nekazariek osatua. Berria - Mundua

2 irud/hed

Britainiar Indiako funtzionarioak ere merkatari-klasetik **erreklutatzen** ziren. Iñaki Mendiguren

CIAk **erreklutatu** zuen. Fernando Morillo

Donaldsonek berak iazko abenduan aitortu zuen 80ko hamarkada hasieran **errekrutatu** zutela MI5 zerbitzu sekretu britainiarrek. Berria - Mundua

Froga ugari eman daiteke barne-proletalgo baten existentziaz hemen, besteak beste, proletalgotik **erreklutaturiko** "intelligentsia" baten existentzia, gutxiengo menderatzailearen agente gisa. Iñaki Mendiguren

Euskal Zerbitzuek *Intelligence Service*-rako lan egiteko **erreklutatu** nindutenekoa. Alberto Ladron Arana

Mendebaldeko ehungintza-hiri guztien inguruetan, merkatariek, destajuan lan egingo zuten eta hiriko langileek bezalako eskariak egingo ez zituzten langileen bila, iruleak eta ehuleak milaka **errekrutatu** zituzten. Koro Navarro

3 (era burutua izen gisa)

Bazirudien antzinako erlijio-praktikek, zeinen bidez jarraituko baitzuen **erreklutatu** berri apalen oste honek bere erlijio-premiak asetzeko bila, proletalgoaren ugazaba sofistikatuen bihotz hutsetarainoko bidea aurkituko zutela. Iñaki Mendiguren

---

erreklutatzaile *(orobat **errekrutatzaile**) izond/iz* erreklutatzen duena.

-Biona? -galdetu zuen sarjentu **errekrutatzaileak**, zorrotz samar begiratzen zidala. Mirentxu Larrañaga

Edonola ere, hobe da lotsa hori egotea **erreklutatzaileen** artean, eta horretan kontsentsua dago nazioartean. Berria - Gaiak

Andrewren arrakasta gero eta handiagoa izan zen: Britainia Handi osoko marinel-**erreklutatzaile** ospetsuena bihurtu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Andrew Miller ofizial marinel-**erreklutatzailea**. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erreklutatze *(orobat **errekrutatze**)* **1** *iz* pertsonez mintzatuz, armadarako biltzea.

Ondorengo guztia baino suspergarriagoak izan ziren garai bateko gutunak, eskariak, bilerak, eztabaidak, **erreklutatzea**, sesioak, salbamendua eta sedizio argi eta garbia.

Anton Garikano

Gizarte Siriakoaren geruza aberats eta sofistikatuagoaren herodianismoa [...] judaismoaz gain beste erlijio nagusi siriako batzuen **erreklutatzeak** orekatu zuen. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Andrew Millerren izenari begiratuta [...] ez zirudien jendea itsasora eramateko pertsona egokiena izan zitekeenik, baina **erreklutatze** lanean harrigarria izan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Frantziako iturriek, bestalde, Zougam Afganistanen trebaturiko islamisten **erreklutatze** sare baten inguruko sumarioan aipatzen dutela esan zuten. Berria - Mundua

Jantzien pean lehergaiak ezkutatuta zeramatzan ekintzaile suizida batek bere burua zartarazi zuen Irakeko Poliziaren **erreklutatze** bulego baten sarreran. Berria - Mundua

Kirkuken beste bi zibil irakiar hil ziren, **errekrutatze** zentro baten aurrean bonba bat leherrarazita. Berria - Mundua

3 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Egin zaitez marinel-bilatzaileen ofiziala, eman ezazu izena marinel-**erreklutatze** bulegoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erreklutazio *iz* erreklutatzea.

Jaurlaritzak Salamancan dauden milaka euskal agiriren berri du: Nekazaritza, Garraio eta Industria Sailekoak, ogasunarenak, Itsas zuzendaritzarenak, Defentsa sailarenak, **Erreklutazio** bulegoarenak, Gerra pentsioen bulegoarenak... Berria - Kultura

---

errekolta *iz ipar* uzta.

Usoa zer ihizi pollita! Hala ere hazten den tokian uste dut makur haundiak egiten dituela uztetan edo **errekoltetan**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eskualde hortan ez dago ez **errekolta**, ez fruitutegirik. Herria

Sonoma balea huntan ere bada ainitz **errekolta** eta bereziki oloa. Herria

Moreno balea trebeskatu ginuen, famatua **errekolta** lekua, badauka ixtorioa, hor kausitzen da Izpiritualen komentu bat bere etxaldearekin. Herria

Hirietan gehiago bozkatu dute, baserrietan aldiz gutiago zeren **errekolten** sasoina baita bete betean. Herria

---

errekomendazio *iz* gomendatzea, gomendioa.

Bisitak egin behar izaten ziren gehienbat, **errekomendazio** bila, heriotza zigorrarekin zeudenen alde. Jokin Urain

---

errekondo *iz* erreka ondoa, erreka bazterra.

Kale bazterretan, mendian edo **errekondoetan** tenpluren bat, saindu etxeren bat eta jendea otoitzean ikusiko duzu. Gotzon Garate

Basora eramango nuen, **errekondoan** etzango ginen inork ikusiko ez gintuen bazterren batean. Anjel Lertxundi

Altza, **errekondoetan** airoso eta lerden altxatzen den zuhaitz beltz hori. Pello Zabala

Beheko zoko eta **errekondoetan** [...], erreka eta ibaien ondoan pilatzen da erreka-laino umel, busti eta frexkoagoa. Pello Zabala

Errekondoko zuhaitzak ea zenbateko goroldio mantarra hartzen zuten, edo zuhaitzen hostoak zenbat irauten zuen. Pello Zabala

Errekondoetako zuhaitz batzuk, hango hezeduraren poderioz, zenbateko goroldioa biltzen zuten enbor-gerrian. Pello Zabala

Kostatik apartexeago, ibarreko lur **errekondokoetan** dabilenak ere antzematen dio itsasaldetik datorkion haizeari, itsasoa bera ikusi ez arren. Pello Zabala

Gaztain morkotsa bezain berdebeltz ager daiteke **errekondo** baztertu eta zailduenean, baina nolako margo berezia duen bere muinak, e? Pello Zabala

---

errekonfortante *izond* bihotz-altxagarria.

Haurtzaroaren babeslekua **errekonfortantea** izan daiteke, baina antzua da. Berria - Kultura

---

errekonkista **1** *iz* galdutako lurraldea konkistatzea, eskuarki Espainiako kristau erreinuek Erdi Aroan arabiarren aurka egin zutena.

Hori dela eta, batzuek gurutzadarako eta **errekonkistarako** gogorik eza aurpegiratzen diote [Antso Handiari], baina salaketa horren funtsa bere jokabidearen laudorio baino ez da bilakatzen. Berria - Kultura

Araben kontrako gerla edo **errekonkistan** Santiagok lagundu zituela giristinoak, bereziki Clavijo-ko gudukan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Espainian eta Portugalen, penintsularen **errekonkistaren** eta islamak atzera eginaren ondorioz sendotu zen aginpide zentrala. Koro Navarro

1987an **Errekonkista** Gerrari ekin zion Habrek, Parisen sostengua zuela. Berria - Mundua

2 irud/hed

Los perros románticos liburuan iraganaren **errekonkista** bultzatzen du egileak, amets gazteen mamuak, literatura eta tragedia, taupada atabikoak gidaturiko sentimenduak eta sentsazioak, harea lakoa ahurretik ihes egiten dutenak, [...]. Berria - Kultura

---

errekoño *interj adkor* harridura adierazten duen hitza. ik **koño**.

Dolmancé: A! **Errekoño**! Erredios! Errekristo! Alda gaitezen, ezin dut gehiago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ai Hau izorramena! Isur gaitezen laurok batera! **Errekoño**! Hiltzera noa!... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

errekonozimendu **1** *iz* fabore eta kidekoen aitortza.

Itxaropena dut inoiz **errekonozimendu** hori jasoko dugula. Berria - Harian

Prestigiorik gabeko lanak dira, **errekonozimendurik** gabeak, eta, lan materiala eginda ere, ez da onura ekonomikorik jasotzen, dohainik egiten baita. Berria - Euskal Herria

Sariek **errekonozimendua** dakarte. Ana Urkiza

Saristapen horrek beraz **errekonozimendua** ekartzen die tokiko langilek egin dituzten lanei. Herria

Mezuaren funtsa Aita Handiaren existentziarik eza dela eta **errekonozimendu** horretatik datorkigula liberazioa eta salbazioa. Joseba Zulaika

Hala ere, ez dut gizonezko batzuek lortu duten **errekonozimendua** jaso. Ana Urkiza

Isiltasunez inguratuta bizi izan dira: kritika nahikorik eta argirik gabe, merezitako **errekonozimendurik** gabe, irizpide maskulinoen arabera egindako irakurketari esker

etiketatuta. Ana Urkiza

Aurkikuntza garrantzitsu hauek eginda ere, Edwin Hubblek ez du lortu historian merezi hainbat ospe eta **errekonozimendu**. Berria - Gaiak

Uste dut sintzeritatea agertzea jendeari begirunea eta **errekonozimendua** erakusteko bide bat baino ez dela; egiatan hitz egiten baduzu ez zarela konpromisoz ari. Pako Aristi

Madrilen egotearen garrantzia nabarmendu zuen Sarasuak, «koalizio honek bakarrik defendatuko duelako sufrimendu guztien **errekonozimendua**». Berria - Euskal Herria

«Gai minbera» hauen artean da, duda gabe, Zipreko Errepublikaren **errekonozimendua**, hori ez baitu oraingoz egina Ankarak. Berria - Mundua

Niri benetan ardura didana irakurleen **errekonozimendua** da. Jon Arretxe

Poz handia, nire lanaren **errekonozimendua** delako. Berria - Euskal Herria

Herrietan **"errekonozimendua"** da begiradarik gehienetan dagoen sentimenik usuena; hirian "identifikatu" egiten zaituzte, interesatzen zaien zerbaiten jabe gisan. Pako Aristi

Badira, gure artean, euskaraz aritu izanagatik **errekonozimendu** handia lortu duten idazleak. funtsean, Momix eta Pilobolusen arteko desberdintasuna konpainia bakoitzaren izpirituan etzan daiteke, gaur ikusi dugunak bere txikitasunean mantendu nahi izan duelako, munduan zehar zenbait sari garrantzitsu eta **errekonozimendu** zabala eskuratu arren. Ana Urkiza

Biktimekiko hausnarketa sakona egin behar dela ere iritzi diot, **errekonozimendu** osoa zor diegulako eta adierazi behar diegulako. Berria - Harian

Tortura dagoela eta sistematikoki erabiltzen dela politikoki aitortzea, torturak kaltetu guztion aurrean nolabaiteko **errekonozimendu** gisa. Berria - Euskal Herria

2 zerbait edo norbait arretaz aztertea.

Gerrako pilotu honen anekdota xumearen ondoan (Arras gaineko **errekonozimendu** hegaldia, tiroketa, itzulera), eta gertaeren osagarri ez baina liburuaren egiazko mami gisa, Saint-Exupéryren bizitzako bizipenek eragindako gogoetak kontatzen dira. Josu Zabaleta

Saint-Exupery gerrako pilotu eta **Errekonozimenduko** 2/33 Hegazkin Taldeko kide da Bigarren Mundu Gerran. Berria - Kultura

Ate asko jo ondoren, 2/33 **Errekonozimendu** taldean sartzea lortu zuen. Josu Zabaleta

Elurra ari zitzaion Zeunerri, poloniarrek Oswieçin eta alemanek Auschwitz deitzen zuten tokira iritsi zenean, **errekonozimendu** soldadu batek eramanik. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta errekonozimendu (5); **eta errekonozimendua** (3)

---

errekonozitu, errekonozi(tu), errekonozitzen du *ad* aitortu.

Euskadi Sariarekin sentitu nintzen, lehenengoz, **errekonozitua** eta idazle sentitzen naiz Euskadi Sariaz geroztik. Ana Urkiza

Emakumeari zergatik kostatzen zaio hainbeste bere burua idazletzat **errekonozitzea**? Ana Urkiza

---

errekonstituzio *iz (corpusean **errekosntituzio** huts tipografikoa) iz* berregitea.

Probintzietan egiten dira **errekosntituzioko** gauza batzuk. Berria - Kultura

---

errekonstrukzio *iz* berreraikitzea, berrosatzea.

Bertan argazki **errekonstrukzio** batzuek erakusten zuten landare tropikalak Cambridgen, kaktusak Sommerseteko cottagetan Berria - Gaiak

---

errekontratu, errekontra, errekontratzen du *ad* berriz aurkitu.

Intzidente horretarik landa hamar urtez ez nuen Joanes ene bideetan **errekontratu**. Itxaro Borda

---

errekontru **1** *iz ipar* istripua.

Aita **errekontru** baten ondorioz galdua dut. Janbattitt Dirassar

Europa guzian, jende arau, Frantzian bezenbat bideko ixtripu ez da beste nihun gertatzen! Urte bakoitx, aspaldixkoan, zortzi mila jendek bizia galtzen dute **errekontru** horietan edo horien ondorioz. Herria

Errekontru berean hil da Anne-Marie Pargade, Hazparnen bizi zen xuberotar bat. Herria

Frangotan, auto batetik besterat arte gutiegi uzten da, horrek ere **errekontru** asko ekartzen du hor gaindi. Herria

Nehork ezin erran **errekontrua** nola gertatua zen. Herria

Errekontru gutiago izanen dela denek beti autoen argi apalak piztuak atxikiz. Herria

Edo **errekontruz**, edo akzidentez zerbait galdu duenak badu gogoeta egiteko sobera asti. Menane Oxandabaratz

16 urteko neska gazte bat, bakarrik zena etxean, ari zen bazkariaren prestatzen, eta lur sagar freitu egitekoari su lotu zaio **errekontruz**. Herria

Su hori **errekontruz** lotu da sukaldean eta frango polliki hedatu. Herria

Itxuren arabera, sua ez da denetan segurik **errekontruz** lotu, edo norbaiten ezazolkeriaz. Herria

Sua Errepublika egunaren biharamunean abiatu zela, doi-doia oren bat barne errebide bazter baten zazpi tokitarik, hori ez dela **errekontruz** gertatzen dena. Herria

Etxe bat edo biga **errekontruz** erretzen direlarik, denen laguntzarekin altxatzen dira berriz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bospasei adiskide, egiazko haiek, tribuko kusiak, hain maitatuak, haurtzaroko jostetakide ahantzezinak, eta lankide bazterrezinak, **errekontruzko** ezezagunak. Piarres Aintziart

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Donibane Lohizunen, Azkainerat buruz ateratze hortan, **errekontru** handia gertatu da joanden goizean. Herria

Beste **errekontru** handi bat ere gertatu da, hau Ziburun, Erreka-Zahar izeneko auzogunean. Herria

Zertan gintazke Ziburu eta Donibane Lohizuneren arteko zubia lehertzen balitz, edo, batere holako **errekontru** handirik gabe, zerbait gisaz zonbait denbora zerratua egon behar balitz? Herria

Gogoan zukeen amak jasan **errekontru** izigarria. Janbattitt Dirassar

Astelehen aratsaldean, 5ak irian, **errekontru** gaitza gertatu da Donibane Garazin, herriaren erdi erdian. Herria

Ez zekiat jakina duanetz, baina joan den igandean ere **errekontru** aski latza izana duk Uztaritzeko ondo horretan. Janbattitt Dirassar

Gaitzeko **errekontrua**, kolpaturik gabe haatik, kasik mirakuilua baita, gertatu da autobidean, Bidarteko ondo hortan. Herria

Bideko **errekontru** batean hila. Janbattitt Dirassar

Karrika zeharkatzean, kuskatuko eta zitzikatuko zuen autoarekiko **errekontrua** desiratzen zuen. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan)

Bana beste egun guziz 21 lagun [hil] dira bide **errekontruen** ondorioz. Herria

4 ***errekontruz kanpo*** okerrik gertatzen ez bada.

Errekontruz kanpo, hemendik urte baten buruko, 2004-eko maiatzaren lehenetik aintzina alabainan, Europa batuan sartuko dira hamar herrialde gehiago. Herria

Gero, **errekontruz kanpo**, lehen lur antolaketak eginen dira zonbait hilabete barne. Herria

Dauka **errekontruz kanpo** aldi huntan ere balentria handiak egiten ahal dituela. Herria

Helduden irailean, gela elebidun bat idekiko da **errekontruz kanpo** segurik Biriatuko eskolan. Herria

· **Errekontru** handi **z kanpo** segurik aurten gertatuko direla. Herria

Errekontru handi **z kanpo**, lanjer horrek iduri badu ere baztertua, jendea ez da oraino soberakinik fida. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bideko errekontru (7); **ere errekontru** (4); **errekontru bat** (5); **errekontru gaitza** (6); **errekontru gaitza gertatu** (3); **errekontru gutiago** (16); **errekontru gutiago izan** (7); **errekontru handi** (5); **errekontru handiz** (14); **errekontru handiz kanpo** (14); **errekontru izigarria** (6); **errekontru latz** (3); **errekontru latza** (7); **errekontrurik ez** (4); **errekontruz kanpo** (11); **errekontruz kanpo segurik** (3); **errekontruz lotu** (5); **errekontruz lotu da** (4); **eta errekontru** (4); **sua errekontruz lotu** (3)

---

errekontziliatu, errekontzilia(tu), errekontziliatzen da *ad* onezkoak egin.

Nahi nuen, naski nihaurek jakin gabe, mundu honetako jende izanez, apezgoaren estatuarekin **errekontziliatu**. Piarres Aintziart

---

errekontziliazio *iz* errekontziliatzea.

Egoera paradoxiko honetan gaude beraz, non **errekontziliazioaren** premia politikoak biktimen gisako jarrerak justifikatzen dituen, baina, bide batez, honek barkamenaren baldintzagabetasuna baztertu gabe. Joseba Zulaika

Ezin da **errekontziliazio** terapia batera murriztu. Joseba Zulaika

Irri bero bezain adierazgarri hura, izotz guztiak urtzen zituena eta bikotea beste espazio batera eramaten: **errekontziliazioaren** etzauntzara, non gorputzak gorputzean aurkitzen baitzuen mugaz haratagoko batasun arestian hautsia, eta arimak sosegua eta oreka galdua. Joan Mari Irigoien

---

errekopa *iz* kopako txapeldunen arteko lehiaketa.

Aurreko denboraldian Txapeldunen Ligan egindakoaren ondoren, **Errekopa** ezinbestean irabazi behar genuen. Berria - Kirola

Errekopa irabazi ez bagenu, urte oso latza izanen zen aurtengoa. Berria - Kirola

Txapel bakarra du: 1991-1992 sasoiko **Errekopa**, Alemaniako TV Milbertshofeni irabazita. Berria - Kirola

Asobal Liga oso zail jarri zaigu, eta, ondorioz, Europako **Errekopa** da gure helburu nagusia. Berria - Kirola

Europako Kopa eta **Errekopa** ez dira gauza bera; baina Europan irabazi genuen lehen txapelketa izan zen, eta garrantzitsua izan zen denontzat. Berria - Kirola

Eskubaloian, Iruñeko Portland San Antonio taldeak beretu du Europako **errekopa**. Herria

Haren agindupean irabazi ditu Iruñeko taldeak orain arte eskuratu dituen 11 tituluak: bi Asobal Liga, bi Espainiako Kopa, hiru Espainiako Superkopa, bi Europako **Errekopa**, Superkopa bat eta Txapeldunen Liga bat. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errekopa bat (4); **errekopa da** (4); **errekopa irabazi** (8); **eta europako errekopa** (4); **europako errekopa** (40); **europako errekopa bat** (3); **europako errekopa da** (3); **europako errekopa irabazi** (6); **europako errekopa irabazteko** (3)

---

errekopilatzaile *iz* bilduma egiten duen pertsona.

Vitruvio ez da, inola ere, **errekopilatzaile** hutsa, *res publica*-ren aldeko bokazio markatua duen eta orain egonkortasunaren eta barealdiaren aro berriarekin gatazkan zeuden barietatea eta kontingentzia kanpoan utziko lukeen jakintzaren sintesi ideala sortzeko ahalegin protoinperialak oso ondo ordezkatzen zituen intelektuala. Santiago Iruretagoiena

---

errekor **1** *iz* norgehiagoketetan, lehiaketetan, kiroletan eta kidekoetan, lortu den emaitza hoberena. ik**marka 7**.

Errekorra lortzeko ahalegin ludiko batean. Iñaki Arranz

Bi fotoi gurutzaturen teleportatze distantzian **errekorra** lortu du Austriako zientzialari talde batek. Berria - Gaiak

Naroa Agirrek pista estaliko **errekorra** berreskuratu du. Berria - Kirola

Hungariako hiriburuan, Budapesten, 8,48 metroko garaierara ailegatu zen Danubio ibaia; 2002ko uholdeetako **errekorra** gainditu zuen. Berria - Mundua

Azken jardunaldian munduko bi **errekor** ondu dituzte, bizkarka 200 metroetan, mutiletan, eta 4x100 estiloetan. Berria - Kirola

Munduko **errekorra** hautsi zuen harea pila baten azpian bizirik lurperatua agoantatzen. Fernando Rey

Shobukhovak pista estaliko 3.000 metroko **errekorra** apurtu du. Berria - Kirola

Errekorren norgehiagoka erabatekoa izan zen hura. Jon Muñoz

Merkataritza defizitaren beste **errekor** bat. Berria - Ekonomia

Chambersek 25 urte ditu, eta Europako **errekorra** du 100 metroetan, 9'87 segundorekin. Berria - Kirola

Thailandian, zeinak 1985 eta 1994 bitartean munduko hazkundearen **errekorra** izan baitzuen, [...]. Koro Navarro

Telebistako esatariak komentatuko zuen kirol haren jatorria tren batean zegoela eta **errekorra** sortzaileak berak zeukala oraindik ere. Unai Elorriaga

Atzoko denborarik onena **errekor** horretatik segundo bat baino gehiagora gelditu zen. Berria - Kirola

Errekorra oraingoz, diotsot, Ines Pedrosak dauka. Edorta Jimenez

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Petrolioa **errekor** historikotik gertu. Berria - Ekonomia

Errepideko lasterketan eta ibilketan orain artean erabiltzen zen marka onenaren ordez, **errekor** ofizialak izango dira. Berria - Kirola

Zure izena egunkarietan azaldu zen munduko **errekor** berria hautsi zenuenean? Fernando Rey

Hortxe zegoen jolasaren mamia: zenbat eta kristalean gorago jo, orduan eta gaindiezinagoa **errekorra**. Unai Elorriaga

Garaiko **errekorra**. Karlos Linazasoro

Bera da munduko **errekorra** ondu duen igerilaririk gazteena. Berria - Kirola

Iruditu zitzaidan postrea amaitu baino lehen buka nezakeela gurutzegrama hura, nire betiko **errekorra** horrela hautsiz lehenengo aldiz. Joxemari Iturralde

Mailu-jaurtiketako munduko **errekorra** -gizonezkoetan-. Jon Alonso

Filchen bulegotik zigorrik gabe alde egitea nolabaiteko **errekorra** izango zen, ziur asko. Iñaki Mendiguren

Hemezortzi urterekin ezkondua eta hogeita birekin dibortziatua, sekulako **errekorra**. Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errekor festa. Berria - Kirola

Kantitatez, **errekor**-libururako baizik ez du balio. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aspaldi honetan salmenta **errekor** guztiak hautsi eta fenomeno sozial bilakatzen ari den liburuaren egilea.Zuzengune horretan hautsi dira azken urteetan txapelketako abiadura **errekor** gehienak. Berria - Kirola

Loris Capirossiren pista **errekorra** segundo eta laurden batean hobetu zuen. Berria - Kirola

Cipollinik Bindaren etapa garaipen **errekorra** zena are urrunago utzi nahi duelako. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da errekorra (3); **errekor bat** (5); **errekor berria** (6); **errekor berria ezarri** (3); **errekor berriak** (3); **errekor guztiak** (4); **errekor guztiak hautsi** (3); **errekor historikotik** (3); **errekorra ere** (3); **errekorra ezarri** (4); **errekorra ezarri zuen** (3); **errekorra hautsi** (13); **errekorra hautsi zuen** (6); **errekorra hobetu** (4); **errekorra lortu** (3); **errekorra lortzeko** (3); **errekorra ondu** (6); **estaliko errekorra** (3); **eta errekorra** (5); **garaipen errekorra** (3); **metroko munduko errekorra** (3); **munduko errekor** (4); **munduko errekorra** (16); **munduko errekorra ondu** (3); **munduko errekorraren** (3); **pista estaliko errekorra** (3); **zirkuituko errekorra** (5); **zuen errekorra** (3)

---

errekordatorio *iz* oroigarria.

Hobeto esanda: amonaren **errekordatorioak** topatu ditut, euskaraz eta erdaraz. Xabier Mendiguren Elizegi

---

errekordun *iz* errekorra duena.

Gizonezkoen 100 metroko **errekordun** Tim Montgomeryk agiri baten bidez berretsi duenez, berak ez du ezer egin AEBetako Dopinaren Aurkako Agentziak dopin substantziak erabiltzeagatik zigor dezan. Berria - Kirola

---

errekorman *iz* errekor bat duen gizonezkoa. ik **errekordun**.

Luzaroan inork harrapatuko ez zuelakoan, lasai asko zegoen William Rutherford, **errekormana**. Jon Muñoz

---

errekorritu, errekorri(tu), errekorritzen du *ad* kurritu. ik **ibili 8; korritu**[1] **2**.

Aurrena Parisera joan zen, eta handik Europa **errekorritzen** ibili zen. Joxemari Iturralde

Horrekin eta kasetean aukeratu berri zuen musikarekin espero zuen moztea depresio moduko hura, etxe hura **errekorritzen** hasi orduko sentitu berri zuena. Joxemari Iturralde

Sentsazio horrek goitik beheraino **errekorritu** zion gorputza, tximista batek bezala. Joxemari Iturralde

---

errekortatu, errekorta(tu), errekortatzen du *ad* ebaki.

Fantasia, beraz, pintatutako lehen fondo hauetatik hasita eta haragizko pertsonaiak panpina zein argazki **errekortatua** bihurtzen diren arte. Berria - Kultura

---

errekorte *iz* ebakina.

Etxetik irtenda goizero agurtzen duzun jendea da aberria, ez zuk gogoan duzun **errekortea**, aberriaren alde epikoki hiltzeko zure ipuin xelebre horrekin. Joseba Sarrionandia

Izan zuen ezbeharrari buruz egunkarietan atera ziren berrien **errekorteak**. Pablo Sastre

Kapelatik konejua atera behar duen magoaren antzera, prentsako **errekorte** bat atera zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Barrualdera ematen duen etxea da, ia altzaririk gabekoa, paretak **errekortez** zipriztinduak. Eider Rodriguez

Errekorte liburu handi bat, azalean nazionalizatze agiria itsatsita zeukana. Pablo Sastre

---

errekreatibo *izond* jolaserakoa.

Jaurlaritzaren hitzetan, «jolas ekintzen arloan xede **errekreatibo** eta turistikoa duten ostalaritza eta kirol ekintzak» onartzen dira. Berria - Euskal Herria

---

errekreazio *iz* berriro sortzea, birsorkuntza.

Silvio Rodriguezek egindakoaren **errekreazio** bat da nolabait, gitarra moldaketa harenean oinarrituta baitago. Berria - Kultura

Urte batzuk geroago [...], berriz ikusi nuela uste izan nuen, zeren uste baitut bere buruaren **errekreazioa** egin zuela bere ipuin onenetako batean, *El otro cielo* izenekoan, jakinminaren jakinminez gillotinako exekuzioak ikustera joaten zen eta Parisen bizi den latinoamerikar baten pertsonaiarengan. Berria - Kultura

Errekreazio historiko-beliko bikaina. Aingeru Epaltza

---

errekreazione *iz ipar* jolas ordua.

Errekreazione denboran egin behar nuen hori. Menane Oxandabaratz

---

errekreo *iz* jolas ordua.

Eredutik kanpora, badakigu, **errekreoa** dago, jolas-ordua, eta kalea, eta bihurrikeria, eta han ereduak ez du indarrik, ehuneko honenbesteko handiegi batean. Iñaki Segurola

Martin **errekreoaren** ondoren azaldu zen ikaselan. Bernardo Atxaga

Egun hartako **errekreoan** ez genuen patioan futbolean egin. Joseba Sarrionandia

Errekreoetan oihu egiten genion ketan zetorren lokomotorari. Edorta Jimenez

Ez dut uste zoko honek **errekreoko** patioaren itxurarik duenik. Harkaitz Cano

Errekreoko txirrinak jotzen zuenean. Joseba Sarrionandia

Ez dut uste zoko honek **errekreoko** patioaren itxurarik duenik. Harkaitz Cano

Goizeko hamarretan, **errekreora** irtetean, lagunek futbolean jokatzeko deitu genion arren, Goiok alde egin zuen. Joseba Sarrionandia

· **Errekreo** ordua da, gainera. Pako Aristi

---

errekristo *interj adkor* haserrea edo harridura adierazten duen hitza.

Dolmancé: A! Errekoño! Erredios! **Errekristo** ! Alda gaitezen, ezin dut gehiago. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina **errekristo** ! Aurretik eta atzetik, bietatik dago eta!... Hala ere, hara hemen ipurdi eder askoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

errekrutamendu ik **erreklutamendu**.

---

errekrutatu ik **erreklutatu**.

---

errekrutatzaile ik **erreklutatzaile**.

---

errekrutatze ik **erreklutatze**.

---

errekta *iz* errepide bateko zati zuzena.

Azkar zihoazen orain ere, baina **errekta** luzeko errepide batetik. Bernardo Atxaga

Kiisu labeko bihurgunetik irten eta **errekta** laburrean sartuz gero, Harantzubiko Demetrio begiak atzerako ispilutik kendu ezinik joan da. Pello Lizarralde

---

errektangelu *(orobat **errektangulu**) iz* laukizuzena.

Bosten bat metro harantzago, kare hautsez osatutako **errektangelu** baten erdian, saihets-hezur zerrenda bat azaltzen zen; lehen begiratuan, uztaiak agerian zituen kupel baten tankera hartzen zitzaion. Bernardo Atxaga

Autodidaktak kartoi bioletazko bi **errektangelu** atera ditu bere diru-zorrotik. Erdialdean, Plaza Barriko **errektangulua** , naximentu batean bezala paratua. Monika Etxebarria

Mailen arteko leihoak -edo **errektanguluak** , hobeki- berdinak direla. Joan Mari Irigoien

Hegal batetik bestera, korridore luze batek **errektangulu** itxura ematen zion. Lutxo Egia

Zalaparta hori zuten beti lagun martxan ziren trenek, bakegaraian gaueko trenek leiho argituen karratu eta **errektangeluak** lagun izaten dituzten bezala. Fernando Rey

---

errektangeluar ik **errektangular**.

---

errektangular *(orobat **errektangeluar**) izond* errektangelu formakoa.

Pedro Huizi ere han zegoen jendartean, bizkar gainean zorro bat eta ohol tipi **errektangular** bat zeramatzala. Joan Mari Irigoien

Jauregiaren aitzinean bazegoen menditik xuxenean zetorren iturri bat, gure osaba Bernabek egokitu zuena, hartarako pareta bat eraikiz eta paretan lehoi-buru bat ipiniz, ahoa zabalik zuena, nondik ateratzen baitzen ura zurrusta hotsandi batean, aska **errektangular** zabal samar baterat isurtzeko. Joan Mari Irigoien

Jauregiaren aitzinaldeko planotik harat, bertzalde, bi lur eremu **errektangular** bereiz zitezkeen, elkarri zerraizkionak eta jauregiaren ataria osatzen zutenak Joan Mari Irigoien

2 angelu guztiak zuzenak dituena.

Harri **errektangularra** da erabiliko duena, 34x34 zentimetrokoa. Berria - Kirola

---

errektangulu ik **errektangelu**.

---

errektifikatu, errektifika(tu), errektifikatzen du/*ad* zuzendu.

Eta nik, jakina, **errektifikatu** egin nuen, prentsaurreko batean. Joan Mari Irigoien

---

errektor ik **errektore**.

---

errektoradu *iz* errektoretza.

Konbenio bat sinatua izan da ere Okzitandar Institutua, Estatua, Akitania eta Departamenduko Kontseiluen eta **errektoraduaren** artean. Herria

---

errektoral *izond* errektorearena, errektoreari dagokiona.

1 ***talde errektoral*** errektore taldea.

Unibertsitate Legeak esaten duena garatzeko sasoia da orain, eta hori **talde errektoralak** guztiekin batera egin beharko du. Berria - Euskal Herria

Nor zen azkenean presio horrek guztiak sortzen zituen behar ekonomiko berrien erantzulea? Eusko Jaurlaritza epe luzera begira, eta errektorea eta **talde errektorala** epe laburrera begira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

EHUk ez du gaur egun baliabide ekonomiko askorik irakasle berriak kontratatzeko, eta horren jakitun da **talde errektorala** . Berria - Harian

EHUko sindikatu guztiek eta **Talde Errektoralak** akordioa lotu zuten hori konpontzeko. Berria - Euskal Herria

---

errektore *(orobat **errektor** g.er.)* **1** *iz* unibertsitate bateko burua.

Errektoreak deituko zidala banekien eta zain nengoen. Joseba Sarrionandia

-Dijestioan sinesten dut -erantzun zuen serioski **errektoreak**-. Josu Zabaleta

Dekano jaunak eta **Errektore** jaunak haren etxean afaltzen zuten, gainera, igandero. Josu Zabaleta

Haren konturik Dekano jaunaren edo **Errektore** jaunaren aurrean aipatzen zen bakoitzeko, halako misterio irribarre bat ikusten zitzaien beti. Josu Zabaleta

Balançoneko fakultateko **Errektore** jaunak. Josu Zabaleta

Pragako Charles Unibertsitateko **errektore** jaunak, Johannes Marcus Marcik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Akademia Ordenaziorako **errektorea** da egun. Berria - Euskal Herria

Errektore jaun txit gorena. Anjel Lertxundi

Salamancako **Errektore** izendatua. Joxe Azurmendi

Zazpi katedradunek eman dute izena Manuel Montero EHUko **errektoreak** utziko duen kargua hartzeko. Berria - Euskal Herria

Bitartean, batzordeak **errektoreari** erabaki-proposamena helarazi eta **errektoreak** erabaki bitartean, orain arte bezala jarraituko du guztiak. Oskar Arana

Bere adiskide **errektoreari** eskatu zion, oso ondo ezagutzen baitzituen hizkuntza horiek biak, bere itzulpena irakurtzeko mesedez. Josu Zabaleta

Erantzukizun lanpostuetan aritzeko (**errektore**, dekano, etab.) funtzionario izatea ezinbestekoa dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez ginateke harritu beharko unibertsitatetik kanpoko gizarte eta politika eragileen esku geratuko balitz unibertsitateko zuzendari nagusiaren, **errektorearen**, aukeratzea, eta unibertsitatearen gobernua eramatea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egungo **errektorearen** hauteskunde programaren barruan plangintza abiatzeko konpromisoa zegoen. Berria - Euskal Herria

Zuzendaritzak eta Espainiako Unibertsitateetako **Errektoreen** Konferentziak (CRUE) presoen ikasketak arautzeko hitzarmen markoa. Berria - Euskal Herria

Lehen, **errektorea** Klaustroak aukeratzen zuenean, kontrolatuagoa zegoen guztia. Berria - Euskal Herria

Errektoreaz, idazkari nagusiaz eta gerenteaz gainera, beste 300 lagunek osatuko dute klaustroa. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko Unibertsitateko **errektorea** izan da (1996-2000), erakunde horretan beste zenbait ardura eta kargu izan ondoren. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hor aurkituko dira departamendu-buruaren inguruan, herriko hautetsi, kontseilari orokor, prefeta, Lurraldeko kontseilari, Akademiako **errektore**, Drac-eko arduradun. Herria

Joan den otsailaren 2an jakinarazi zuen Monterok EHUko **errektorerako** hauteskundeetara ez zela aurkeztuko. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskal Unibertsitatearen sorreran inplikatu beharko luke **errektore** berriak. Berria - Euskal Herria

EHUko **errektore** ohiak, berriz, Aznarren gobernuaren lege erreforma kritikatu zuen. Berria - Euskal Herria

Oi, **errektore** setatia! Josu Zabaleta

Errektore irrizaleak zioenez, une horretan kimikalariren batek analizatu izan balu, doktorearen osaeraren bi herenak paper zaharrak hartzen zituela aurkituko omen zuen. Josu Zabaleta

Horregatik esan ohi zuen **errektore** gorrotagarri hark inoren kontura bizizale ziren uzki-pitxer guztiak, zeinek bere moduko metamorfosia eginik, doktore sentikorregi haren kasko gainean bilduko balira, ez ziekeela hark bizkarroi gaixo nahasi haiei gerrarik egingo. Josu Zabaleta

PPk ere EHUko jarduneko **errektoreak** hartutako erabakia «errespetatzen» zuela esan zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Hurrengo **errektoreak** estatutuen puntu guztiak aurrera aterako dituela ziur nago. Berria - Euskal Herria

Doktoreak bere sinestea azaltzen zuen orduko, zentzu beretik ekiten zion **errektore** deabruzko hark. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikasle Abertzaleek ikasleen eskubideak errespetatzeko eskatu die Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) **errektore** hauteskundeetara aurkeztu diren zazpi hautagaiei. Berria - Euskal Herria

Horixe adierazi zien EHUko klaustrokideei **errektore** karguan euren aurrean egindako lehenengo agerraldian. Berria - Euskal Herria

Errektore kargua hartu eta gero, gorabeherak izan ditu bere jarrera politikoa dela eta ez dela. Berria - Euskal Herria

4 *izond* agintzen edo gidatzen duena.

Oiartzungo Haurtzaro ikastolako Kontseilu **Errektoreak** herriko alkateari eskatu dio manten ditzala Haurtzaro eta Oiartzo ikastolako gurasoei azken zazpi urteetan eman dizkien diru laguntzak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bordeleko errektoreak (4); **bordeleko errektorearekin** (5); **den errektorea** (3); **du errektore** (3); **du errektoreak** (5); **egungo errektorearen** (3); **ehu ko errektorea** (3); **ehuko errektore** (29); **ehuko errektore berriak** (3); **ehuko errektore juan** (3); **ehuko errektore kargua** (3); **ehuko errektorea** (15); **ehuko errektorea aukeratzeko** (3); **ehuko errektoreak** (28); **ehuko errektoreak ez** (3); **ehuko hurrengo errektorea** (3); **ehuko jarduneko errektoreak** (3); **errektore berria** (12); **errektore berria aukeratzeko** (4); **errektore berriak** (12); **errektore inaxio** (3); **errektore izan** (3); **errektore izateko** (10); **errektore izateko hautagaiak** (3); **errektore izendatu** (4); **errektore jauna** (7); **errektore jaunak** (11); **errektore jaunaren** (3); **errektore jaunari** (3); **errektore juan** (4); **errektore juan ignacio** (3); **errektore kargua** (6); **errektore ohiak** (6); **errektore pedro** (5); **errektore pedro burillok** (3); **errektore zela** (4); **errektorea aukeratzeko** (14); **errektorea ere** (4); **errektorea eta** (9); **errektorea eta klaustroa** (3); **errektorea euskalduna** (3); **errektorea izan** (5); **errektoreak adierazi** (3); **errektoreak berak** (5); **errektoreak eta** (7); **errektoreak ez** (6); **errektoreak ez zuen** (3); **errektorearekin eta** (3); **eta errektore** (16); **eta errektore jauna** (4); **eta errektore jaunak** (4); **eta errektorea** (6); **eta errektoreak** (4); **herriko unibertsitateko errektorea** (3); **hurrengo errektorea** (5); **iglesias ehuko errektore** (4); **iglesias ehuko errektorea** (4); **iglesias ehuko errektoreak** (7); **jarduneko ehuko errektoreak** (3); **jarduneko errektoreak** (5); **jauna eta errektore** (4); **ko errektorea** (3); **mondragon unibertsitateko errektore** (3); **mondragon unibertsitateko errektorea** (6); **montero errektoreak** (3); **pello salaburu errektore** (5); **perez ehuko errektorea** (3); **perez ehuko errektoreak** (4); **salaburu errektore** (6); **salaburu errektore zela** (3); **salamancako errektore** (3); **salamancako errektoreak** (3); **unibertsitateetako errektoreak** (3); **unibertsitateko errektore** (14); **unibertsitateko errektorea** (14); **unibertsitateko errektorea eta** (3); **unibertsitateko errektorea izan** (3); **unibertsitateko errektoreak** (5); **zuen ehuko errektoreak** (3); **zuen errektoreak** (3)

---

errektoregai *iz* errektore izateko aurkezten den pertsona.

Unibertsitarioen parte-hartzea eskatu dute **errektoregaiek**. **Errektoregaien** izaera politikoak zeresana izan dezake botoemaileen azken erabakian. Berria - Euskal Herria

Zerk animatu zintuen **errektoregai** izatera? Berria - Euskal Herria

Juan Ignacio Perez Iglesias eta Iñaki Antiguedad EHUko **errektoregaiak**. Berria - Kultura

Ikasle Abertzaleak taldeak (IA) ikasleei dei egin zien atzo botoa emateko: klaustrorako hauteskundeetan IAri eta **errektoregaien** artean Iñaki Antiguedaden hautagaitzari. Berria - Euskal Herria

---

errektorego *iz* errektoretza.

Oso zaila zitzaion errektoreari edo **errektoregoko** taldeari indar handiarekin zetorren presioaren aurrean aurkako edo aldeko jarrera gutxienezko askatasunarekin hartzea. horrelako gutun bat guztiz arriskugarria izango zela zure ikaslea nintzen bitartean, aski izango bainuen **errektoregoan** erakustea zure kontrako espediente bat zabaltzeko, eta hortik aurrerako guztiak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Euskal Herriko Unibertsitateko **errektoregoak** irakasleen sindikatuek asteazkenean deitutako grebaren jarraipena «oso handia» izan dela adierazi du. Berria - Euskal Herria

Inperioko Unibertsitate gorenaren **Errektoregotik**, Unamuno-k, euskaldun, katalan, galegoak eta Latinoamerikako herri guztiak bere deiari jarraika dituela, Inperio berri bat fundatu gura du, hizkuntza berri bat. Joxe Azurmendi

Nire baitatik ateratzen baininduen ikusteak nola **errektoreorde** edo dekano zenbaitek ez zuten egiten batzuetan ahaleginik txikiena ere, euskaldunen eskubideak direla eta, kosturik gabeko araubideak betetzeko, nahiz hori mezutzen genien behin eta berriz. Pello Salaburu

2 (hitz elkartuetan)

hilabete pare bat lehenago Unibertsitate Klaustroa boikoteatu zutenen artekoa izatea leporatzen zion Amaiari orduko **errektorego** -taldeak, Klaustro hartako istiluetan aritu izana, alegia. Joxerra Garzia

Uste dut oihuka ari ziren haiek ez zutela jakingo EHUko **errektorego** taldean inoiz baino euskaldun gehiago zegoela garai hartan. Pello Salaburu

---

errektoreorde **1** *iz* sail jakin batean errektorearen ordeko edo laguntzaile nagusi den pertsona.

Hogeita hamarren bat mutiko geunden, pupitreetan binaka, eta **errektoreordea** agertu zenean denak zutitu ginen. Joseba Sarrionandia

Ahal bezain laster **errektoreordearen** bulegoarekin harremanetan jartzeko eskatzen diote. Oskar Arana

Inazitok **errektoreordearen** mintzadoinua denoi barre eginarazteko moduan imitatu zuen. Joseba Sarrionandia

Hitzalditxo bat eskaini zuten Felipe Juaristi eta Kirmen Uribe idazleek, eta EHUko Euskara **errektoreorde** Ludger Mees-ekin batera euskal literaturaren nondik norakoak azaltzen saiatu ziren. Berria - Kultura

Arabako campuseko **errektoreorde** Antonio Riverak Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) errektore hauteskundeetara aurkeztuko dela baieztatu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Ordenazio Akademikorako **errektoreordea** zen orduan. Berria - Harian

Euskal Herriko Unibertsitatean beste zenbait ardura izan ondoren Euskara **Errektoreordea** izan zen (1997-2000). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Jose Maria Zumalabe: Ikasleria **errektoreordea** Psikologia Fakultateko katedraduna. Berria - Euskal Herria

NUPeko Ikasleen **errektoreorde** izan zen Berruezo, 2003a bitarte. Berria - Euskal Herria

Apaiztegiko errektorea eta **errektoreordea** beren postuez baliatzen ziren apaizgaiak sexu harremanak izatera behartzeko. Berria - Gaiak

Gorka Ortiz de Urbina Zeledon eta Iñaki Landa Zeledon ohia, Jose Angel Cuerda Gasteizko alkate ohia, Oihane Perea bertsolaria, Antonio Rivera Arabako campuseko **errektoreorde** ohia. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Oraindik EHUko Euskara **errektoreorde** kargua hartu ez badu ere, bere alorrean zer egin daitekeen aztertzen ari da. Berria - Euskal Herria

Knorrek, Arabako **errektoreorde** lanetan zebilela ezagutu zuen Eguzkitza. Berria - Kultura

---

errektoreordegai *iz* errektoreorde izateko aurkezten den pertsona.

Egitasmo bat dut eta beste hautagaitzetan **errektoreordegai** baliagarriak direla badakit. Berria - Euskal Herria

---

errektoreordetza *(orobat **erretoreordetza** g.er.) iz* errektoreordearen lanbidea eta kargua; errektoreordearen lan egoitza.

Bi **errektoreordetza** berri sortu ditugu, genero ikuspegia lantzeko bata eta Euskal Herriko unibertsitateen sarea eraikitzeko bestea. Berria - Euskal Herria

Errektoreordetza horrek egin dezakeen lana Espainiako Hezkuntza Ministerioak hartu behar dituen erabakiek baldintzatuko dute.Arabako campuseko **errektoreordetza** uzteko asmoa ere banuen. Berria - Harian

Internet sarean argitaratua du, EHUko Euskarako **Errektoreordetzaren** eskutik, *A Brief Grammar of euskara, the Basque Language* liburua. Berria - Kultura

Arabako campuseko **errektoreordetzak** arte sariketa antolatu du EHUko edozein zentrotako ikasleentzat. Berria - Kultura

Gasteizko **Errektoreordetzak** bere bilduman dituen artelanen argazkiak erakutsiz katalogoa argitaratu du liburu eta CD-ROM euskarrietan. Berria - Kultura

Irakasleen prestakuntzan ere sakondu gura du Euskara **errektoreordetzak** prestatuko duen Plan Gidariak. Berria - Euskal Herria

Limes bilduma sortu du Esteban Antxustegi irakasleak zuzendutako talde batek, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara **Erretoreordetzaren** babesean. Berria - Kultura

---

errektoretza *(orobat **erretoretza** g.er.) iz* errektorearen lanbidea eta kargua; errektorearen lan egoitza.

Bordeleko **Errektoretzak** kudeatzen ditu Akitania eskualdeko ikastetxe guztiak. Berria - Euskal Herria

Errektoretzak egoerari aterabidea emateko ahalik ez duela dio. Berria - Euskal Herria

Ertzaintzak, baina, handik atera zituen **errektoretzak** hala aginduta. Berria - Euskal Herria

Frantziako Hezkuntzak eta **Erretoretzak** deliberatzen dute zein den eskoletan behar den liburu mota, edukiak eta bertze hainbat irizpide. Berria - Harian

Joan den ostegunean, komunikatua aurkeztu zuen EHUko **Errektoretzak** grebaren aurka. Berria - Euskal Herria

Nola ikusten dituzu EHUko **Errektoretzarako** hauteskudeak? Berria - Euskal Herria

Errektoretzaren ate aurrean geratu ginen, pasilloan, atea jo gabe. Joseba Sarrionandia

Astiro joan nintzen, **errektoretzaren** bulegora ahalik eta beranduen ailegatzeko. Joseba Sarrionandia

Fakultate guztietako beharginek, berriz, **Errektoretzan** zeuzkaten hautestontziak. Berria - Euskal Herria

Unibertsitateko **errektoretzan** lehergailua jarri zuten, Aiacciu hirian. Berria - Mundua

Monteroren **errektoretza** taldeko kide Beatriz Casares irakasleak ere Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatuta egon diren euskal presoen ikasketa programa «zurruntasunez» bete dela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Mondragon Unibertsitateko (MU) errektore Inaxio Oliveri erretiroa hartuko duenez, bere ordorengoaren izendatze prozesua martxan jartzea erabaki du **Errektoretza** Kontseiluak. Berria - Euskal Herria

---

errekuento *iz* zenbaketa, eskuarki ziegakoa.

Gaur Jon Bengoa preso politikoa urkatuta aurkitu dute ziegan **errekuentoa** egitean. Paddy Rekalde

Goizean jaiki orduko, leiho ondoan jarri beharko zenuen zutik, esku ahurrak aurrera begira, **errekuentoa** pasatzeko. Jokin Urain

Errekuentorako leiho ondoan zutik egon behar zenuen, esan dudanez. Jokin Urain

Bat-batean goizeko **errekuentoan** ez nintzela jaikitzen eta kasurik egiteko asmorik ez neukala ikustea ezin izango zuten sinetsi. Jokin Urain

---

errekuntza **1** *iz* gai baten eta oxigenoaren arteko elkarketa, gehienetan beroa eta argia igorriz gertatzen dena.

Auzitegi Gorenak gasaren **errekuntza** bertan behera uzteko agindu zien multinazionalei azaroan. Berria - Mundua

Pospolo bat piztean sortzen den **errekuntzak** arima energiaz betetzen duelako. Patxi Zubizarreta

Errekuntza honek energia sortzen du eta energia horren zati bat bero bezala barreiatzen da -ariketak berotu egiten du gorputza-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bero hori, gero, lan bihurtzen da, baina ez dena, eta, gehienetan, eraginkortasun maila nahiko apala emanez, lan gutxi eta bero handia sortzen baitira **errekuntzaren** ondorioz. Irene Aldasoro

Nola zekien hark azukrea pozoi hilgarria zela barne **errekuntzako** motorretarako? Oskar Arana

Beiraz eta altzairuzko eraikin zeru-harraskariak, abiadura handiko trenak, **errekuntzako** motoredun ibilgailuak, ordenagailuak, fotokopiagailuak, mundu osoko komunikazio sarea. Karlos Zabala

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esan zuenez, gas **errekuntzak** sufre bakoa izanik, «ez du isurtzen atmosferara ez SO2 gairik, ez zatikirik». Berria - Euskal Herria

Oraingo barne-**errekuntzako** motorra, automobiletan erabiltzen dena, atzera-aurrerako motor gisa abiatzen da, baina errotazio-mugimendu bihurtzen du bere energia. Irene Aldasoro

Nola zekien hark azukrea pozoi hilgarria zela barne **errekuntzako** motorretarako? Oskar Arana

---

errekuperaketa *iz* errekuperatzea.

Lehen partida ikusita inork ez luke esango lau hilabete geldirik egon zarenik, agian **errekuperaketa** tartean eginiko kantxa gaineko ariketengatik izango zen? Berria - Kirola

---

errekuperapen *iz* errekuperazioa.

Erakusketaren gaia **errekuperapena** da. Herria

---

errekuperatu, errekupera(tu), errekuperatzen **1** du *ad* berreskuratu.

Hitz egiten hasi dela, memoria ere **errekuperatzen** ari dela. Joseba Sarrionandia

Nafarrek behar dute beren historia eta iragana **errekuperatu**. Herria

Azkenean, zortzigarren itzulian, KO eder batez bere munduko txapela **errekuperatu** zuen Alik. Ramuntxo Etxeberri

Chelseak erdialdean baloia **errekuperatzea** lortu zuen aldi urritean. Berria - Kirola

Lehen unean SIBEko burtsetan lurrikaratxoa eragin zuen arren (80 puntu galdu zituen Ibex-35 indizeak), ondoren 30 puntu inguru **errekuperatu** ahal izan zituen. Berria - Ekonomia

Katalizatzailea **errekuperatu** egin daiteke eta prozesu gehiagotan erabili. Berria - Gaiak

Gerlaren bukaeran, Manila **errekuperatu** nahi izan zutelarik amerikarrek, japonesek zer nahi sarraski egin zituzten hirian. Ramuntxo Etxeberri

Egoeraren gordinak [...] ondorio positiboak ere ekarri ditu: benetako solidaritatea (ez telemaratoietakoa) errealitate bihurtu da, eta bidezko merkataritza-formak **errekuperatu** egin dira (trukea, kasu). Txema Ramirez de la Piscina

Lortua zuen bere buruarekiko konfiantza alferrik galdua pittin bat **errekuperatzea**. Joxemari Iturralde

Oso ondo, besoko mugimendua ere **errekuperatu** duzu", esan zidan medikuak-. Bernardo Atxaga

Barriolak iaz galdu zuen konfiantza, Aimarren aurka 22 eta 3 galdu ostean, geroztik ez du txisparik **errekuperatu**. Berria - Kirola

DBH bukatzen ari ziren gazteek **errekuperatzeko** aukera izan zuten: astebeteko tartea izan zuten gainditu gabe utzitako ikasgaietako azterketak berriz egiteko. Berria - Euskal Herria

Besta egun bat igandea delarik, haatik, ez da biharamunean **errekuperatzen**. Berria - Harian

Gaur egun zenbat **errekuperatzen** da? Auto zaharren zein material birziklatzen dira? Berria - Gaiak

2 da *ad* oneratu, suspertu.

Hurrengo partidarako **errekuperatuko** dela esan zuen atzo Patxi Eugik. Berria - Kirola

Erritmoari ondoen eusten dionak eta ondoen **errekuperatzen** duenak irabaziko du. Berria - Kirola

Aranzubia **errekuperatzen** denean aulkira bueltatuz gero desengainua hartuko zenuke? Berria - Kirola

Amona Sinforosa, haatik, guztiz **errekuperatua** zegoen orduko. Joan Mari Irigoien

Hamargarren asaltoan Cassius Clay **errekuperatu** egin dela ematen du Baina hamaikagarrenean Joe Frazierrek lauzpabost kolpe azartatu ditu eta Cassius Clay balantzaka hasi da indarrak galdurik. Joseba Sarrionandia

Sevillak **errekuperatzeko** egun bat gutxiago duela aprobetxatu behar dugu. Berria - Kirola

Abstinentzi sindromea pasatu ondoren, **errekuperatzeko** prozesuari ekin nion ostera, gogo handirik gabe baina, zentro espezializatu batean. Joan Mari Irigoien

3 (-tik atzizkiaz)

Bere senera itzuli zenean, arnasa berdindu eta ustekabetik **errekuperatu**, denboraren kontrakzioak ez baitzuen minutu bakar bat iraun, Juamanuelek ia akabatu egin ninduen. Joseba Sarrionandia

Helburua?, lesiotik ondo **errekuperatzea** eta ahal bada lehen partida pasatzea. Berria - Kirola

Oraindik ez naiz **errekuperatu** orduko inpresiotik. Berria - Kultura

Zesareatik **errekuperatu** bitartean haurra amonarekin utzi zuten. Berria - Euskal Herria

Txapelketa luze egiten ari zaio bati baino gehiagori, eta neketik **errekuperatzea** gero eta zailagoa izango da. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errekuperatu egin (5); **errekuperatu nahi** (6); **errekuperatu nahi izan** (3); **errekuperatu zen** (3); **errekuperatzen ari** (4); **errekuperatzen da** (3); **eta errekuperatu** (3); **nola errekuperatuko** (3); **ongi errekuperatu** (7); **ongi errekuperatzen** (3)

---

errekuperatze *iz* berreskuratzea.

Estatu-nazio europarrak jasan dituen kontraesanen trepidazioak, bere boterearen galtze eta **errekuperatzeak**, eragin zuzena izan du estatu-azpiko nazionalismo periferikoetan ere. Joseba Zulaika

Jokalariek egina dute sasoiko lan fisikorik gogorrena eta hemendik aitzin, **errekuperatze** saioak beharrezkoak izango dira. Berria - Kirola

---

errekuperazio **1** *iz* errekuperatzea.

Nafarroako euskal historia, galeraren historia ez ezik, **errekuperazioarena** ere badela erakutsi baitzigun. Berria - Kultura

Matrikula kopuruaren **errekuperazioa** gertatu da udal euskaltegietan, egoerari aurre egiten saiatu garelako, batez ere eskaintza malgutuz. Berria - Euskal Herria

Zentro jakin batzuetan **errekuperazioa** gertatu dela dirudi; baina, oro har, zuzenagoa da esatea gelditu egin dela beheranzko joera. Berria - Euskal Herria

Konfiantza indizeen bilakaera ona, industria jardueraren suspertzea eta munduko merkataritzaren **errekuperazioa** dira Europako Batzordeak iritzi hori emateko kontuan hartutako aldagaiak. Berria - Ekonomia

Behin lan fisikoa egiteko moduan direla, nirekin hasten dira **errekuperazioa** egiten. Berria - Kirola

Plangintza apur bat egin dugu, **errekuperazioa** nola egin, zer janarirekin hasi... Jokin Urain

Laguntza haiekin, umetan nuèn ilusio bertsuarekin ekin nion **errekuperazioari**. Joan Mari Irigoien

Eguneroko eta etengabeko tentazioa lagun txarra duk **errekuperaziorako**. Joan Mari Irigoien

2 (izenondoekin)

Urdurienak ere gelara lasai sartzen zirela ikusi nuen, eta ebakuntza egin ostean ere **errekuperazio** ona izaten zutela. Berria - Gaiak

Gustura hartuko nuke neuk ere, **errekuperazio** on baterako aholku eta protokolo guztiak pikutara bidaliz. Jokin Urain

Zuk izandako lesio hori gero eta sarriago gertatzen da, eta bistan da ebakuntza ondo irteteaz gain, **errekuperazio** egokia egitea nahitaezkoa dela. Berria - Kirola

Biei ala biei ere belauneko lotailu gurutzatuetako ebakuntza egin zieten, eta **errekuperazio** luze eta neketsua egin ondoan jokatzeko moduan dira. Berria - Kirola

Gaur egun dauden biktimak jasotzeko zentroak, **errekuperazio** osorako zentroak bihurtuko dira. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horiek horrela, batzuek **errekuperazio** egun bat eskaintzea erabaki dute. Berria - Harian

Medikuntzan izan diren beste aurrerapenei esker, gaixoaren **errekuperazio** aldia murriztea ere lortu da. Berria - Gaiak

Ebakuntzak eta **errekuperazio** epe luzeak ez diote iazko denboraldi arrakastatsua ahaztarazi. Berria - Kirola

Ebakuntza bukatuta, astebete egin zuen etxean geldirik, apurka-apurka **errekuperazio** lana hasi arte. Berria - Kirola

Jokalariak ordu pasatxo egon ziren Zubietan lanean, **errekuperazio** saio leuna egiten. Berria - Kirola

Horregatik, **errekuperazio** ahalmena ere kontuan hartu beharko da. Berria - Kirola

Errekuperazio azterketak itzuli egiten dira. Berria - Euskal Herria

Etxera hiru puntuekin itzultzen bazen, **errekuperazio** bidean jar zitekeen azken postuetako putzu beltzetik ateratzen hasteko. Joxemari Iturralde

Lies ere onartuta dago hurrengo ikasturterako, baina **errekuperazio** azterketa gogor bat egin beharko du geometrian. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errekuperazio lan (3); **errekuperazio lana** (6); **errekuperazio saioa** (5); **errekuperazio saioa egin** (3); **eta errekuperazio** (5)

---

errekuperazioaldi *iz* errekuperazio aldia.

Errekuperazioaldi gogor bat eginda, uztailaren 5ean kantxaratu zen berriro. Berria - Kirola

---

errekurrente *izond* errepikaria.

Ezagun da non eta noiz kokatzen diren testuak, iraganeko leku eta garai gordean, non imajinario kolektiboa -eta norberarena- ezin litekeen alda, zorionez; leku **errekurrentea** nora beti bueltatzerik dagoen, haren abaroan aterpe bila abiatu gaitezkeen. Berria - Kultura

Ordoñez Falcon Fundazioak eta Kultura Garaikideko Donostiako Nazioarteko Zentroak antolatu duten azoka horretako gai **errekurrenteenetako** bat da emakumea. Berria - Kultura

Zamariaren agerpen **errekurrentea** , orrialde horietako une ongi aukeratutakoetan, berau bihurtzen zutela, gure errealitatea batere ezagutzen ez duen irakurlearentzat [...], pertsonaia desatsegin, desgaraiko eta desegoki: politikarako ez gauza, hitz batez. Jon Alonso

---

errekurrentzia *iz* zerbait era errepikarian edo aldkizka agertzea.

Gaztaroko irakurketez gogoratze honek eraman zuen Raimundo Silva, ideien **errekurrentziaren** bide ezagunen bitartez, historia bizkorrago iraganeraztea, denbora azkarragotzea bere esku zegoela pentsatzera. Azterketa enuntziatiboak suposatzen du kontuan hartzen direla **errekurrentzia** (récurrence) fenomenoak. Jon Alonso

Errekurrentzia -aukera hauei guztiei dagokienez, oroimena eta ahanztura, zentzua berriro aurkitzea edo bera zapaltzea irudi bereziak besterik ez dira, oinarrizko legeak izan barik. Xabier Arregi

Bera izan zen lehenetariko bat **errekurrentzia** bidezko demostrazioa erabiltzen emaitza matematikoak ezartzeko; zenbakien teorian, batik bat. Jon Muñoz

---

errekurrentzial *izond* errekurrentziarena, errekurrentziari dagokiona.

Azterketa **errekurrentziala** da eta bera bakarrik zientzia osatu baten barruan gauza daiteke eta behin bere formalizaketa atalasea iraganda. Xabier Arregi

Berak ez du beharrik, azterketa **errekurrentzialak** aitzitik baduen moduan, zientziaren barruan ipintzeko bere burua. Xabier Arregi

---

errekurritu, errekurri(tu), errekurritzen du *ad* adierazten denaz baliatu, adierazten denarengana jo.

2 zuzenbidean, hel egin, helegitea aurkeztu.

Taldea ez dago ados zigor horrekin eta **errekurritu** egingo du erabakia Apelazio Batzordearen aurrean. Berria - Kirola

Erabakia **errekurritu** egingo du Nazioarteko Olinpiar Batzordean eta Nazioarteko Kirol Federazioen Elkartean. Berria - Kirola

Baina **errekurritu** egin genian ebazpena. Iban Zaldua

Lege berriak Konstituzionalean **errekurrituta** dagoena eta iragan urtean alargun pentsiodun txikienentzako onartutako onura fiskalak baliogabetzen ditu. Berria - Ekonomia

Armadoreak auzia bigarrenez **errekurritu** eta Norvegiako Auzitegi Gorenera joko duela esan du. Berria - Ekonomia

Paroten epaia **errekurrituko** dute, «Konstituzioa urratzen duelako». Berria - Euskal Herria

Nafarroako Kutxaren estatutu berrien akordioa **errekurritu** du Aralarrek. Berria - Ekonomia

Belgikako Fiskaltzak hirugarrenez **errekurritu** du Rakel Garcia eta Luis Morenoren askatasuna. Berria - Euskal Herria

Italiako futbol federazioak ez du **errekurrituko** UEFAren Lehiaketa Batzordeak Francesco Tottiri jarritako hiru partidako zigorra. Berria - Kirola

Mamerek esan du ez duela berriz **errekurrituko** . Berria - Gaiak

Langile batzordeak nahiz grebalariek eta enpresak elkarri jarritako salaketak bertan behera utziko dituzte, epaitegietan dagoeneko epaiturik edo **errekurriturik** daudenak barne. Berria - Harian

---

errekurtsibitate *iz* errekursiboa denaren nolakotasuna.

Hizkuntzen ezaugarrietako bat dago goiko testu horren oinarrian: **errekurtsibitatea** . Iñaki Arranz

Hizkuntzaren **errekurtsibitatea** "argimen" batean [...] atzeman nahirik, Chomskyk osagai-egitura eredua perpaus horietatik sortzen den itxurapena "formaldatzen" duten eragiketekin bateratzen du. Itziar Laka

Geroztik askok errepikatu dute esaldia, nork bere gogora ekarrita, baita nik ere **errekurtsibitatearen** adibide bat jartzearren. Iñaki Arranz

---

errekurtsibo *iz* mugarik gabe errepika edo ezar daitekeena.

Modu bateko edo besteko lanabes **errekurtsiborik** baldin badu, perpaus-kopuru amaigabea sortuko du. Itziar Laka

Pentsatu beharra dago gramatikak nolabaiteko mekanismo **errekurtsibo** batzuk dituela. Itziar Laka

Gramatika batek lanabes **errekurtsiborik** ez badu [...] ezin maneiatuzko konplexutasuna izango du. Itziar Laka

Arauak era **errekurtsibo** batean ematen dira, eta formulak designatzeko metahizkuntza baten sinboloak erabiltzen dira. Askoren artean

Istorio baten barruan beste bat, modu **errekurtsiboan** gainera. Berria - Kultura

---

errekurtsiboki *adlag* era errekurtsiboan.

Terminoen multzoa honako erregela hauek emanez definitzen da **errekurtsiboki** : [...]. Askoren artean

Orain gai gara logikaren formulak zein diren zehazteko eta, terminoen multzoarekin egin dugun moduan, hemen ere formulen multzoa **errekurtsiboki** definituko dugu, lehendabizi formula atomikoak zein diren adieraziz: t1, t2,..., tn terminoak badira (n finitua izanik), eta erlazio sinbolo n-tar bat bada, orduan, formula atomikoa da. Askoren artean

Bi gorputzek, beren biluztasunaz harrituak bezala, beren neurriko aritmetika binario ttiki bat asmatu dute eta [...] deduktiboki osabete, eta, hori aski ez dela, bukaera post-axiomatiko asebetegarri batez **errekurtsiboki** bedeinkatu, biak goxoki, unibertsitateko arratsalde urduri haietan bezalaxe. Iñaki Segurola

---

errekurtso 1 *iz* zuzenbidean, helegitea.

Filipe-k berak **errekurtso** bat egin du, erabaki hori bertzelakarazteko asmoz. Herria

Ikerketa akulaturik, jakin zen **errekurtsoa** Michel Poulouauz apez ohiak egina zuela bainan bere burua agertu gabe eta beste norbaiten izena ezarriz. Herria

Pierre Dartout prefetak **errekurtso** bat pausatu du Angeluko zinema proiektuaren kontra. Herria

Orduan, kasu hori zeraman abokatuak **errekurtso** bat aurkeztu zuen. Berria - Harian

France Telecom eta Frantziako Gobernuak **errekurtsoa** aurkeztuko dute Bruselako erabakiarekin ez datozelako bat. Berria - Ekonomia

Errekurtsoak ez du aurrera egiteko batere aukerarik. Berria - Euskal Herria

Europako Patenteen Bulegoak igaro azaroan eman zuen ontzat CAFek asmatutako sistema, Talgok jarritako **errekurtso** bat atzera botata. Berria - Ekonomia

Errekurtsoa atzera bota eta Josetxori partida bateko zigorra jarri diote. Berria - Kirola

Auzitegiak **errekurtsoa** onartzen badu, bospasei urte beharko dira behin betiko erabakia jakiteko. Berria - Ekonomia

Kazetariak eta aldizkariak **errekurtso** bana jarri dute, eta auzia etenda dago. Berria - Gaiak

Estatu kideren batek, Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak jarritako **errekurtsoei** buruz erabakitzeko eskumena edukiko du Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak. Berria - Harian

Gai hori ebatzita dago eta legeak dioen bezala egin behar ditugu gauzak, bestela, gero, **errekurtsoak** jartzeko orduan, defentsak errazegi izango duelako. Berria - Harian

Oroit-arazi behar da aitzineko prefetak ere **errekurtso** bat ezarri zuela Lemoine enpresa buruarekin Angelun pentsatua zen proiektuaren kontra. Herria

Errekurtsoa ezarria zuten bost elkarte eta sindikatek ez dituzte manera berean hartu auzitegiaren erabakiak. Herria

TKEk jakitera eman zuen bi taldeek aurkeztutako **errekurtsoa** aztertu ondoren zigorra bertan behera utzi duela. Berria - Kirola

Askok ezin izan dute gora jotzeko **errekurtsorik** aurkeztu ere. Berria - Euskal Herria

Erne egoitea noiz duen dei-auzitegiak aztertuko Filipe-k hel-arazi **errekurtsoa** . Herria

Fiskaltza Antiterroristaren **errekurtsoa** baztertu du Parisek eta Sole aske utzi dute baldintzapean. Berria - Mundua

Gauzak horrela, eskatu zion Madrili **errekurtsoa** kentzeko. Berria - Ekonomia

Konstituzionalak **errekurtsoa** tramiterako onartu ostean, Nafarroako Gobernuak auzian parte hartzea erabaki du, dekretua eta soldaten berrazterketa defenditzeko. Berria - Ekonomia

Probintzia, printzerri, herrialde, kantonamendu, hiribildu eta biztanle-komunitateen pribilegio partikular guztiak, diruzkoak nahiz beste edozein eratakoak, abolituta gelditzen direla **errekurtsorik** gabe, eta frantses guztien Zuzenbide Komunean izango direla batuak. Andres Urrutia

Errekurtsoen bidea agortuta, ondorioz, auzitegien erabakia betetzeko unea da. Berria - Ekonomia

Auzitegiek, azken urteotan bederen, justizia eskaleak igortzen zituzten, premiazko **errekurtsoen** bidez, botere legegilearen esparrura. Andres Urrutia

Defentsak aurkeztutako aurretiazko bi helegite erantzun gabe zeuden: perituen zilegitasunari buruzkoa bata, eta fiskalaren autoan egiten diren baieztapen batzuen inguruko suplika **errekurtsoa** bestea. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

MMEri sortu denez geroztik aurkeztu zaizkion **errekurtso** kopuru handiak eta kasurik gehienetan haren ebazpenek izan duten errespetuak, erakunde hau alde-aniztasunaren itzuleran lagungarri izan daitekeela adierazten dute. Koro Navarro

CFDT-ek legezko **errekurtso** bide guziak erabiliko dituela horretarako. Herria

Beste hiru **errekurtso** zioak, haatik, aztertu egingo ditu. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurkako ahotsik ere bada, ordea; herritar batzuk, kontra, administrazioarekiko auzi-**errekurtsoa** aurkeztu zuten duela bi urte. Berria - Euskal Herria

4 baliabidea.

Orkestraren **errekurtso** guztiak erabiltzen ditu Mahler-ek. Berria - Kultura

Mina igual-igual sentitzen da, gertatzen dena da **errekurtso** gehiago dauzkagula gure adinean mingarria izan den gauza interesgarritzat agertzeko. Pako Aristi

Bigunkeriak baztterturik, iraultzak indarkeriaren **errekurtsoa** ere beharrezko izan dezakeela ondorioztatzera iristen da: [...]. Joseba Zulaika

Azken **errekurtso** gisa, Graçak amarengana jo zuen Napumoceno jaunaren bizitan izandako beste emakumeen galdean. Bego Montorio

5 (izenlagun eta izenondoekin)

Halako kasuetarako zeukan **errekurtso** bakarra erabili zuen Mikelek, amultsu igurtzi zizkion sorbalda eta lepo buelta. Unai Iturriaga

Estridentziarik gabeko orekaren jabe, bibratoa bezalako **errekurtso** teknikoak, kontrolpean dagoen sonoritate atseginaren mesedetan erabili zituen. Berria - Kultura

Euriak paisaiaren ikuskera lausotzen du, eta gauarekin batera **errekurtso** bisual bat izateaz gain, sonoroa ere bihurtzen da. Unai Iturriaga

Errekurtso literario bat gehiago, erabiltzeko eskubide osoa dudana gainera! Unai Iturriaga

Emaitzen presiopean, betiko **errekurtsoa** erabili du: fitxaketak. Berria - Kirola

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beldur naiz, ordea, politikan erabiltzen diren hitzak bestearentzat bakarrik balio duten oratoria-**errekurtso** soilak ez ote diren. Hasier Etxeberria

7 (pluralean) diru-baliabideak.

Urte guztian zehar ekoizpenean lagundu nahi ditugu artistak, **errekurtsoak** izan ditzaten. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

administrazioarekiko auzi errekurtsoa (4); **aurkako errekurtsoa** (5); **aurkako errekurtsoa aurkeztu** (3); **auzi errekurtsoa** (4); **errekurtso bat** (16); **errekurtso guztiak** (4); **errekurtso hori** (3); **errekurtsoa aurkezteko** (5); **errekurtsoa aurkeztu** (11); **errekurtsoa aurkeztu zuen** (5); **errekurtsoa ipini** (3); **errekurtsoa jarri** (4); **errekurtsoa jarriko** (3); **errekurtsoa jartzeko** (3); **errekurtsoak ez du** (3); **errekurtsoei buruz** (3); **eta errekurtso** (4); **jarritako errekurtsoa** (3); **jarritako errekurtsoaren** (3)

---

errekusazio *iz* epaiketa edo kideko batean parte hartu behar duen epaile, lekuko edo beste arbuiatzea.

Auzipetuei azalpenak emateko aukera ukatzea eta defentsa abokatuek epaimahaiari aurkeztutako **errekusazioa** atzera botatzea ere txartzat jo zituen. Berria - Euskal Herria

Epaiketa aurretik aztertu beharreko lau gaitan ere «urraketak» sumatu ditu elkarteak: auzipetuei eman beharreko hainbat jakinarazpen falta zirela, auzian dauden enpresekiko komunikaziorik eza, froga gisa aurkeztutako dokumentuak eskuratzeko trabak eta hainbat perituren aurkako **errekusazioak**. Berria - Euskal Herria

---

errelajatu ik **erlaxatu**.

---

errelatore *iz* goi epaitegietan autoen eta espedienteen zerrendaren kontua egiten duen letratua.

Theo Van Boven NBEko giza eskubideen **errelatore** ohiak ere esan zuen legea aldatu behar dela, Europako Abokatu Demokraten Elkargoak auzitegi honen salbuespenezko izaera salatu du. Berria - Euskal Herria

---

errelatu *iz* kontakizuna.

Izendapena merezia denik ez dago zalantzan jartzerik, Kisen eta Borgesen narrazio-teknikei eta literaturaren lehengaiei erreparatuta: mendebaldeko kulturaren **errelatu** nagusiak berrirakurtzeko nahia, erudizio aizunerako joera, saiakeraren hoztasunez jantzitako ipuinetarako jaidura, metaliteraturarako gogoa. Berria - Kultura

---

errelaxatu ik **erlaxatu**.

---

errele *iz* gailu elektromagnetikoa, korronte laguntzaile txiki bat erabiliz ahalbidetzen duena zirkuitu jakin baten korronte nagusia erregulatzea.

1 irud/hed

Erretinako hartzaile bakoitza nerbio-zelula banari lotuta dago sinapsi deitzen den **errele** baten bidez. Josu Zabaleta

Sinapsiak, adibidez, ez dira **errele** soilak; eginkizun eraginkorra dute, "kitzikatzaile" baitira batzuk, eta "inhibitzaile" besteak. Josu Zabaleta

Erretina bera ere, informazioa, interpretatu gabe, puntuz puntu transmititzen zuen halako **errele** soil samar bat bezala ulertzen zen. Josu Zabaleta

---

errelebatu, erreleba(tu), errelebatzen du *ad* ordeztu.

Soldadu bakanen bat ipintzen bagenuen guardiatarako, edo ihes egiten zuen, edo bere tokian gelditzen zen konortea galtzen zuen arte, inork ez baitzuen inoiz **errelebatzen**. Pablo Sastre

---

errelebo *(orobat **errelebu** g.er.)* **1** *iz* norbait lanpostu edo zerbitzu batean ordezkatzea.

Philippe Carabas-ek presidente kargua utzirik, Gilles Peynoche, aspaldiko kideak hartu du **erreleboa**. Herria

Sarriegi, era horretan, ordezkaritzaren **erreleboa** hartu zuen maisuaren gisara ageri da. Askoren artean

Telleriak hartu zion erretzeko txandan **erreleboa**, bi hatzekin zigarroa piztu eta bi hatzekin erretzen hasiz. Harkaitz Cano

Lehendakari aldaketak norabide aldaketa ekarriko du ala, besterik gabe, **erreleboa** hartu duzu? Berria - Kultura

Hautetsien eta elkarteen hitzaldietatik lekora, zikiro jateak eta euskal kantuek hartuko dute **erreleboa**. Herria

Eddy Merckxen atzetik metro batzuetara Poulidor eta Van Impe batak besteari **erreleboa** ematen. Joseba Sarrionandia

Erreleboa ere eskatu zuen orduko hartan, bosgarren eta azkeneko aldiz presidente aukeratu zutela eta: «Txanda behar dut, ezin bainaiz betierekoa izan». Berria - Euskal Herria

CGPJk ezarritako epeen arabera **erreleboa** bi aste barru izango denez, Zorrrilaren ordezkoa izango da hiru aforatuak epaitzeko eskumena izango duen aretoko presidentea. Berria - Euskal Herria

Erreleboa ere eskatu zuen orduko hartan, bosgarren eta azkeneko aldiz presidente aukeratu zutela eta: «Txanda behar dut, ezin bainaiz betierekoa izan». Berria - Euskal Herria

Hasieran, nire ordutegia zortzietatik hamabietara eta ordubietatik zazpietara zen, baina berehala **erreleboetan** sartu ninduten, eta aita ere berdin, berak eskatuta, elkarrekin egon gintezen. Jon Maia

Inori zintzurra egin behar izan gabetanik jabetu ginen ontziaz, oinutsik, labana eskuan, bat-banaka aholotu eta estekatu genituen **erreleboko** guardak. Koldo Izagirre

Olinpiar Jokoetan izan da aurten, 4x200 **erreleboetako** taldean, eta 400 eta 800 metrotan brazako Europako azpitxapelduna da, junior mailan. Berria - Kirola

Nahiz eta **erreleboetako** proba izan, nahiko indibiduala da. Berria - Kirola

EAJ krisi une batean egon da Arzalluzen **erreleboarekin**. Berria - Euskal Herria

Illes Balears, T-Mobile, Cofidis, CSC... guztiak hasi ziren **errelebotan**, erritmo ezin biziagoan. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez ote zen italiarraren jarrera eroso samarra izan, **errelebo** luzeenak berari emanda. Berria - Kirola

Herriko plazatik bi manifestazio abiatzen ziren egunero, bat goizean eta bestea arratsaldean, gainerako fabrikek eta tailerrek bigarren **erreleboa** amaitu eta gero. Jon Maia

Gure fabrikan asanbladak goizeko **erreleboko** lehen orduan egiten ziren, Perrito esaten genion zaindaria baino ez zegoen orduan. Jon Maia

Arratsalde hartan *Hogar Vasco*ko frontoiko kantxan asteroko **errelebora** joatekoak ziren konpainia biak lerrotu ziren; hantxe ziren Irungo beteranoak, Boadilla eta Unibertsitate Hiriko heroiak, txamarretan ikurrina, euriek eta eguzkiek higatu eta kasik ezabatuak agerian Edorta Jimenez

3

Erreleboa: **Errelebo** kontratua bultzatuko dute, eta eskubideak galdu gabe lan eta familia ardurak uztartzea. Berria - Ekonomia

· Ordu bertsuan, Trinitateko kaletik, han baitzeuden iturriak, guardia **erreleboa** ere igarotzen zen, harresietara bidean, danbor eta txilibitu musikaz. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erreleboa hartu** (4)

---

erreleboka *adlag* erreleboetan.

Hirugarren proban, **erreleboka**, 25 segundoko aldea atera zuten, eta dagoeneko 6-2 ziren aurretik garaileak. Berria - Kirola

3. proba: **Erreleboka** bi bikoteak, bi kanaerdiko ebakitzera (2 puntu). Berria - Kirola

Erreleboka bi bikoteak, bina kanaerdiko ebakitzera. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erreleboka bi (9); **erreleboka bi bikoteak** (9); **proba erreleboka** (4); **proba erreleboka bi** (3)

---

errelebu ik **errelebo**.

---

erreleku *iz* erretzeko lekua.

Asiriako erregearentzat aspalditik gertu dago **erreleku** sakon eta zabala, egur-pila handia. Jaunaren arnasak emango dio su, sufre-bolada baten antzera. Elizen arteko biblia

---

errelijio ik **erlijio**.

---

errelijione ik **erlijio**.

---

errelikia ik **erlikia**

---

erremaiatz *iz* ekaina.

Zabaleroa kuanto, ekainaren bueltan ere maiatz-berri eta **erremaiatz** edo arramaiatz deituko baitzaio eguzkiaren hilabete dontsu horri. Pello Zabala

---

erremal *iz* brida.

Alegia, karlismoaren **erremalak** bere besoetan hartzeko prest agertzeko. "Azkeneko urte hauetan, senarra, eta Eujenia Napoleon baino askoz ere gazteago izanik (areago omen zirudien beraren alaba, emaztea baino), "Eugenia la españolak" hartu bide zituen **erremalak** bere eskuetan alor batzuetan, batere ahalkerik gabe. Txillardegi

---

erremarkatu, erremarka(tu), erremarkatzen du *ad* nabarmendu, azpimarratu.

Apezpikutegiko leihotik benedikatu gintuelarik, aurpegia genuen **erremarkatu**: adin bateko gizon baten bisaia, lasai eta gizen, alimaleko belarrien parentesien artean iribarretsu. Piarres Aintziart

Edo bestenaz behar du, eman dezagun, uda betean baldin bada forradurazko zer batekin... bistan da, orduan **erremarkatuko** dut, bainan bestenaz ez dut kasu egiten ez, soberakinik. Menane Oxandabaratz

Unamuno-ren interesa **erremarkatzeko** espainoltzearen zentzua gizadigintza batena dela. Joxe Azurmendi

Halatsu arestiko krisi eta dekadentzia diskurtso nahinon arruntuan ere, V. Pareto eta G. Mosca-k, R. Michels-ek, nolabait Max Weber-ek berak, bere "buruzagi karismatikoarekin", gizartearen biltzeko eta artikulatzeko eliteen noraezeko rola **erremarkatzen** zuten. Joxe Azurmendi

---

erremarkos *izond adkor* nabarmena.

Elkoko Auzapeza denbora batez euskalduna baitzen (gaur ez dakit hala den) aste hori euskaldunen astea deitzen zuen, biziki **erremarkosa** zelakotz. Herria

---

errematatu, erremata(tu), errematatzen **1** du *ad* bururatu; amaitu.

-Erlijiorik gabeko jendea, denak! - **errematatu** zuen Anuta zaharrak. Josu Zabaleta

"Anai-arrebok", **errematatu** omen zuen herriko bekatuen errepasoa egin eta gero, "segi, bai, segi lasai bekatubidean..., baina jakizue: Jainkoaren zokor-mazoak kirtena luze du!. Joxerra Garzia

-Eta zelako titiak dauzkan erdikoak! - **errematatu** zuen Zigorrek-. Jon Arretxe

"Ni ere kezkatuta nago", **errematatzen** du Carmenek. Bernardo Atxaga

Amak aitari egindako komentario batek **errematatu** zuen pasadizoa: Berriro gustua hartu diola ematen du. Anjel Lertxundi

Koaderno urdinean (Ambarclass, 16,5 x 22 cm.) jaso dudan korolario batekin **errematatuko** dut Daneli eman nion argibidea: [...]. Anjel Lertxundi

Konfidantza izanez, azken segundoan, errematetzat geneukan hura **errematatzeko** beste ateraldi edo zertzeladaren bat etorriko zaigula. Andoni Egaña

Hasieran, Katxok ondo defendatzen zuen berea, eta kolpe amorratuekin **errematatzen** zuen jokoa, baina gero, taxua galdu balu bezala, faltak egin eta egin hasi zen, modu negargarrian, eta partida berdindu egin zen. Koro Navarro

Teresa txoriaren aurrean makurtu zen. “Begitxoak irekita dauzka oraindik. **Errematatu** egin beharko duzu”, esan zidan. Bernardo Atxaga

Don Paulinoren ondoren, beste apaiz sutsu bat etorri zen, don Patrixio, don Paulinoren lana **errematatu** zuena. Joan Mari Irigoien

Egizu kontu zure aixkire Joxepitak larrua beti mesedez eskatzen dizula (eta eskerrik askorekin **errematatzen**, tartean pare bat barkatu botatzen dituelarik). Iñaki Segurola

Eta, barre-algaraz amaitzen genuela, amonak ukabila zerura jaso, eta honela **errematatu** zuen bere jarduna: [...]. Joan Mari Irigoien

S. jaunak biharamunean **errematatu** zuen kontratua. Joan Mari Irigoien

Emmanuel heroina injektatzen ari zunan, injekzio izugarri handi batekin, halakoa baitzen xiringa ere, upel baten tamainakoa, orratz bertikal batek **errematatua**. Joan Mari Irigoien

Hiru margolan erakusten ditu, akrilikoz **errematatuak**. Berria - Kultura

Baina maleta beltza, ertz zilarreztatuekin **erremataturiko** larruzko maleta zurruna, han zegoen oraindik. Harkaitz Cano

2 futbolean eta kideko kiroletan, baloia aurkakoen ate aldera bidali jokaldi bat bururatzeko.

Jankulovsisek **errematatu** zuen, baina Nikopoloudisek kornerrera bota zuen. Berria - Kirola

Amoroso brasildarrak buruz **errematatu** eta Albertok egundoko gelditua egin zuen. Berria - Kirola

Bosgarren minuturako hainbat aukera izan zituzten bi taldeek, baina garbiena greziarrek izan zuten, ezker hegaletik sartu ziren, eta erdiratzea lortu, baina ez zuten buruz **errematatzen** asmatu. Berria - Kirola

Beste jokaldi batean ez zuen gainera etorri zitzaion baloia **errematatzen** jakin. Berria - Kirola

Nenek bikain **errematatu** zuen, Bodipok eskuin hegaletik emandako pase neurtua. Berria - Kirola

Eskuin hegaletik jasotako zentro bat izan zen, berak ezker boleaz **errematatu** zuena, baloia sareetara bidaliz. Joan Mari Irigoien

Eskuin hegalean Nevillek Beckhami aurrea hartu zion, honek pasea sartu zion bi jokalariren artetik, Nevillek erdiratu eta ezker hegaletik zetorren Gerrardek ate barrura **errematatzeko**. Berria - Kirola

Muñozek berak aukera ona izan zuen 18. minutuan, Pablo Garciak kornerra atera, Mateok baloia orraztu eta bigarren zutoinean **errematatzeko** aukera izan zuenean. Berria - Kirola

Zortea ez du lagun izan, hiru bider **errematatu** duelako zutoinera. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bikain errematatu (3); **bikain errematatu zuen** (3); **buruz errematatu** (8); **buruz errematatu zuen** (3); **buruz errematatzen** (3); **errematatu ondoren** (3); **errematatu zuen** (35); **errematatzeko aukera** (3); **errematatzen asmatu** (4); **errematatzen du** (4); **errematatzen ez** (3); **errematatzen saiatu** (4); **halaxe errematatu** (3); **ondo errematatu** (3)

---

errematatzaile 1 *iz* futbolean eta kideko kiroletan, baloia aurkakoen ate aldera bidaltzea jokaldi bat bururatzeko.

Bere erdiraketek, ordea, ez zuten **errematatzailerik** aurkitu. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Kovacevic **errematatzaile** bikaina dela jakina zen, baina larunbatean oztopatzailea ere badela erakutsi zuen. Berria - Kirola

Indartsua, azkarra, **errematatzaile** aparta eta buruz erabakigarria. Berria - Kirola

Turkiarra ez da **errematatzaile** klasikoa, baina eraginkortasun handia duela frogatu du. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Buru- **errematatzaile** bikainak izan dira munduan: Di Stefano, Pele, Zarra, Santillana... baina ba al dakizu nor izan den jokalaririk onena buruz? Joan Mari Irigoien

4 pilotan, tantoa bururatzeko jokaldia egiten duen jokalaria.

Pilotari **errematatzaileek** erritmo bizia jartzen dute, boleaz eta gantxoan primeran moldatzen da, eta botez jokarazi behar diot, horretan saiatuko naiz». Muguruza eta Huizi bi aurrelari **errematatzaile** ariko dira elkarren aurka, heldu den ostiralean, Zumarragako txapelketako finalean. Berria - Kirola

Lehen aurrelariak **errematatzaile** hutsak ziren; egun, berriz, Irujo, Xala edo Olaizola bezalako aurrelariek atzelari askok baino kolpe bortitzagoa dute, eta aise dominatzen dute kantxa erdiko piloteoa. Berria - Kirola

Berari aurrean errematatzen ez uztean egongo da partidako gakoa, bera sake- **errematea** bilatzen saiatuko baita. Berria - Kirola

---

erremate 1 *iz* errematatzea, bururatzea; zerbait errematatzen duen gauza; zerbait bururatzearen ondorioa.

Aukeraturiko oinak gogoan antolatzen ditu, diskurtso ahalik eta koherenteena eta osoena bilbatzeko egokientzat jo duen ordenan, kontuan harturik betiere dagoeneko ezagutzen duela bere diskurtsoaren bukaera edo **errematea**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eguberriak izan ziren urte bikain baten gailurra, baina baita **errematea** ere. Xabier Olarra

Hona hirugarren bertsoaren **errematea**: [...]. Iñaki Segurola

Hark neskaren bidetik harilkatuko likek, seguruenera, kontakizunaren **errematea**. Anjel Lertxundi

Baina ezin luza naiteke gehiago eta oraingoz hementxe du honek **errematea**. Iñaki Segurola

Errematea, azkena, eten gatzatua, zurrundua eta iritzi bihurtua. Iñaki Segurola

Metastasi bat han eta metastasi bat hemen, entzundako pronostikoak estukiago besarkarazten dio gaixoari bere **erremate** edo azken beltza. Iñaki Segurola

Eskuinean dorre luze eta estu bat dauka, eraikuntzaren **errematetik** ozta goititzen dena. Koldo Izagirre

Dorre horren gainean marmolezko **errematea** jarri zuen eta gainean brontzezko Tritoi bat, makila bat zuela eskuineko eskuan. Santiago Iruretagoiena

Biltzaileari erosi genizkion latorrizko hamar ontzi handi, ARAR (Material Zaharkituen **Errematerako** Bulegoa) delakotik eskuratuak. Juan Garzia

Eta **errematerako** beste baten autoan ekarri ninduten etxera, nirea han utziz. Iñaki Zabaleta

Esaldi solemne bat behar nuen **errematerako**, baina solemne behar zuena barregarri samarra atera zitzaidan: [...]. Juan Luis Zabala

Hemendik aurrera beste aulki batean eseriko naizela, hori ere erantsi diot **erremate** gisa. Anjel Lertxundi

2 (adkor)

Eta **errematerako**, bakarrik geldituz joan zuan herria; hortik zehar ospa egin zitean guztiek, eta ni mantentzen ninduen karitatea ere haiekin joan zuan. Juan Garzia

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Horregatik harritzen da hainbeste, eta gozatzen du hartaraino, bertsolaria apurka, gero eta indartsuagoa den testu bat osatu eta bukaeran **erremate** bortitz eta argia ematen diolarik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Orain, ohe gainean ihalozka, kirolerako aspaldi arrozturiko nire zango unatuek **erremate** fisikoa ematen zioten, oroz gain, gogo-gogoan neukan oinazeari. Aingeru Epaltza

Orduan hasten da bertsolaria kantatzen, bertsoa ahalik eta egokien osatzen, landu duen bukaera, azken **errematea**, ahalik eta eraginkorrena izan dadin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eskuetan hartu zuen, **erremate** zilarreztatuak hatzen puntaz ukituz. Harkaitz Cano

Baquek talde lan txukunagoa egin du Espainiako Vueltan, eta Cardenas kolonbiarrak **erremate** polita eman dio. Berria - Kirola

4 (hitz elkartuetan)

Harrigarri, **erremate** egunaren bezperan bere etxea erabat erre zen. Gotzon Garate

Horregatik, teila zaharrekin egindako **erremate**-ilarak izango dira onenak; eta horiekin egindako paretak ere ondo sendoak izango dira. Santiago Iruretagoiena

· Dena dela, eutsi egin diegu eszena- **errematetako** pareatu sarriei, lautu dugun neurtizkeraren zantzu gisa, 5/5//8 neurrira egokiturik. Juan Garzia

5 futbolean eta kideko kiroletan, baloia aurkakoen ate aldera bidaliz jokaldi bat bururatzea.

Bere **errematea** zutoin ondo-ondotik irten zen kanpora. Berria - Kirola

Errematea, ordea, kaskarra, Teteren eskuetara. Berria - Kirola

Lehendabiziko **errematean** Deportivo aurretik jarri zen markagailuan. Berria - Kirola

Bakar-bakarrik geratu zen Calatayuden aurrean, baina **errematean** ez zen batere fin ibili. Berria - Kirola

Errematean egin dute huts. Berria - Kirola

Kontrako aurrelariaren gantxoak eta **errematak** sahiesteko. Berria - Kirola

Eskuin oinarekin baloia altxatu eta buruaren parean zuenean atzeraka **erremate** dotorea egin zuen. Berria - Kirola

Llorentek Kike Mateoren pase on bat jaso eta **erremate** bortitza egin zuen; baloiak, langan jo ondoren, marra gainean egin zuen botea, baina marrazainak gola adierazi zuen. Berria - Kirola

Getafek ere ez zuen askoz ere gehiago egin, pare bat **erremate**, xalo samarrak. Berria - Kirola

Buruarekin egindako **errematea** da bere baliabiderik onena, baina ez da area-gizon petoa. Berria - Kirola

Titin III.a hilabete bat kantxetatik kanpo egon da [...] eta pilotazaleei bere **errematerako** gaitasuna erakusteko gogoarekin joango da. Berria - Kirola

Batetik pilotakada luzea eta boteko jokoa, bestetik, berriz, **errematea** eta tantoa bukatzeko trebetasuna. Berria - Kirola

Titinek 10 tanto egin zituen **errematez**, baina defentsan zein erasoan hura adina edo gehiago izan zen Eugi. Berria - Kirola

6 enkantea.

Plazaren ertzean burdinaz eta egurrez eraikitako harmaila gisako tramankulu erraldoia atondua zen eta, autoritate eta kazetarientzat gordetako esparruaz aparte, **errematean** diru gehien ordaindutakoek berton zuten saioa ikusteko patxada. Josu Landa

Horretarako, gaur bertan enkante bat martxan jarri dute Interneten. www.es.ebay.com helbidean, hogeita hamar gauza inguru **errematera** atera dituzte Caballitoko langileek, gehienak kirolari ezagunek emandakoak. Berria - Ekonomia

7 ***erremateko*** *izlag*

Erdian sabaia egingo da, eta proportzio hau emango zaio: kupularen altuera, **erremateko** lorea kontuan hartu gabe, eraiki beharreko lan osoak duen diametroaren erdia izango da. Santiago Iruretagoiena

Horren arabera, **erremateko** ilaretan jarrita esfortzuari eutsi ezin dion adreilua, paretan jarrita ere ez da izango kargari eusteko behar bezain sendoa. Santiago Iruretagoiena

Arima gorputzetik apartatzea?; bizi-bitartearen **erremateko** ertzean aurrera pasatzea?; osotoro ahantzia izateko bide bati lotzea? Iñaki Segurola

8 ***errematea eman***

Aurkariak zaindu, onenaren gurpilari itsatsi, haren erritmoari majo sufrituta eutsi, eta helmugako marra bistaratu orduko, **errematea eman**. Arbelarena ez zen ordurako negozio ona; panel elektrikoak izan ziren garai batean alor emankorra, baina bakelitak aurrena eta plastikoak gero **eman** zioten **errematea**. Berria - Kirola

· **Errematea** nola eman jakingo du ordea ditxolariak. Andoni Egaña

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken errematea (3); **azken errematean** (3); **baina errematean** (3); **egindako erremate** (4); **egindako errematea** (3); **erremate bat** (4); **erremate gisa** (3); **errematea egiteko** (4); **errematea eman** (5); **errematea emateko** (4); **errematean asmatu** (5); **errematean ez** (4); **eta erremate** (5); **eta errematea** (6); **eta errematerako** (3); **lehendabiziko errematean** (3); **zuen errematea** (3)

---

erematisma ik **erreumatismo**.

---

errematxagailu *iz* errematxatzeko gailua.

Lurrin-**errematxagailuak** etengabe kirrinkatzen zuen. Lopez de Arana

---

errematxatu, errematxa(tu), errematxatzen **1** du *ad* iltzeez eta kidekoez mintzatu, sartu denean haren burua zapaldu.

Sekulako sabel metalezkoa, pernoz sendo lotua, **errematxatua**, zurez, beiraz eta burdinurtuz egina. Karlos Zabala

Esku-oinak erditik iltzeek zulatuak ageri ziren: iltzeen buruak eskuen barrualdean eta oinen gainaldean haragitik kanpora zeuden; muturrak, berriz, eskuen gainaldean eta oinen azpialdean haragitik kanpora irteten ziren, eta bihurrituak eta **errematxatuak** zeuden. Askoren artean

2 (era burutua izenondo gisa)

Haragi gainean nabarmentzen ziren mutur bihurritu eta **errematxatuen** azpitik erraz sartu ahal izango zen eskuko behatza, eraztun batean bezala. Askoren artean

Iltze **errematxatuen** muturrak oinazpian hain nabarmen kanpoaldera irtenak zirenez, ez zioten uzten oinzolak lurrean lasai pausatzen. Askoren artean

Haragi koskorrak ikusten ziren, iltzeen punta bihurrituak eta **errematxatuak** balira bezala, gainerako haragitik kanpora irteten zirenak. Askoren artean

---

errematxatzaile *izond* errematxatzen duena.

Kanpoaldetik iristen zitzaien eraikin berri batean lan egiten zuten **errematxatzaileen** mailu-hots luze eta etengabea. Lopez de Arana

---

erematxe *iz* sartu den iltzearen burua zapaltzea; horrela zapalduriko iltzea.

Buruz dakizun erretolika kontatu diezu, anekdotak eta guzti, zenbat **erematxe** dituen, zein zailtasun izan ziren jasotzeko. Urtzi Urrutikoetxea

Ikusi nuen, ikusi, nola lotzen zizkioten **erematxeekin** bola eta katea ezkerreko hankan. Matías Múgica

Wilson Avenue-ko geltokia, hogei edo hogeita hamar urte lehenago Manhattangoak egoten ziren modura zegoen: argi fluoreszente horiak, baldosa zuri txikiak hormetan, eta **erematxez** jositako burdin habe sendoak eraikinari eusten. Iñaki Zabaleta

"Hemen!", nik hari hots, bere eskua hartu eta hirurogeita hamar milimetroko **erematxe** haietako batean pausarazten nuela, erakusten ari nintzaiona uler zezan. Joxe Austin Arrieta

---

erremediaezin *izond* ezin erremediatuzkoa.

Zalantza izpirik ere gabe jakin nuen, era berean, hura konplot, makinazio edo sabotaje bat zela, ondorio **erremediaezinak** zituena. Karlos Linazasoro

Baita galera bikoitz horrek norberaren txoko batean lehen bezain **erremediaezin** eta eskandalagarri irauten badu ere. Joxan Elosegi

Zerbait **erremediaezina**, antzinakoa eta mingotsa sentitu zuen eztarri zuloan. Harkaitz Cano

Agintedun zenbait, maiz, beren arazoen arduradun egin dituzten konfiantzazko adiskideen eraginez, errugabekoen hilketetan partaide gertatu izan da, eta **erremediaezineko** kalteak egin izan ditu. Elizen arteko biblia

---

erremediagaitz *izond* erremediatzen zaila.

Gainditu egiten du, gudariak **erremediagaiztzat** dauka, kanpoko indar ikaragarritzat, eta bera gehienez ere lantzean behin patuari erantzutera, patuaren mailan jartzera, hel daiteke. Markos Zapiain

---

erremediatu, erremedia, erremediatzen du *ad* egin den kaltea indarrik gabe utzi; kalteren bat jarrai edo gerta dadin eragotzi. ik **zuzendu; konpondu**.

Ongi nekusan nitaz mintzo zirela: ahalke gorritan jartzen ninduen horrek; ezin nuen **erremediatu**. Jon Muñoz

Ezin izan nuen **erremediatu**: zenbat eta barrenetik isilago eta serioago nagoen, orduan eta zaratatsuago agertzen naiz kanpotik. Josu Zabaleta

-Alabaina, **erremediatuko** du Jainkoak -esan zuen Don Kijotek-. Patxi Ezkiaga

Partitzear da bere ergelkeria **erremediatzera**. Jon Muñoz

Bere izen ona bihurtu egiozu nire aita zenari, eta zentzu oneko gizon zuhurtzat eduki ezazu, bere jakinduriaren bitartez, bide erraxa eta zuzena aurkitu baitzidan nire zorigaiztoa **erremediatzeko**. Patxi Ezkiaga

Horra, ez dut astirik nire buruari hazka egiteko edo nire azkazalak mozteko ere; luze-luze eginak dakartzat; Jainkoak **erremediatu** beharko. Patxi Ezkiaga

Ezin **erremediatuzko** galera. Jon Muñoz

---

erremedio 1 *iz* zerbait erremediatzeko bidea edo gauza.

Halako ingurumen latzean, *lexomil, prozac, paxil, lysanxia* eta *temesta* bezalako **erremedioak** baliagarri suertatzen ziren. Itxaro Borda

Ajea erabat sendatzeko botika edo **erremedioa** ezagutzen zuela. Jon Alonso

Joan izeneko gizon gazte bat hesteetako hernia batek oinazetua zegoen, eta medikuen **erremedioek** ez zioten ezertan laguntzen. Askoren artean

Santaklara deituriko eroetxean zegoen ohe zuriari estekaturik, **erremedioz** galkatua eta atorra zurbailaren azpian biluz. Itxaro Borda

Deitu zieten medikuei eta beren **erremedioak** aplikatu zituzten, baina oinazea gehitu egin zen eta gaitza sendatu beharrean larriagotu. Askoren artean

Izpiritu haien aurka, mila **erremedio** probatu zituzten: apoak, igelak, bareak eta abar. Joan Mari Irigoien

Egunkarian irakurri zuen bere burua ibaira bota zuela, loak hartzeko **erremedioak** alkoholarekin nahas irentsi ondoan. Itxaro Borda

Beren eguneroko sufrimenduari **erremedioa** jarri nahian-edo. Joan Mari Irigoien

Gaitzari **erremedioa** jartzeko agindu hau eman zuen: [...]. Askoren artean

Eritasun horiei **erremedioa** jartzeko sendagaiekin botika konpainiek lortzen dituzten irabaziak ekarri dituzte gogora. Berria - Gaiak

Zeren baitzirudien ezen **erremedio** hark guztioi on egin zigula. Joan Mari Irigoien

Engainuz baina ez kalterako, **erremedio** horrekin berritu eta sendotu daitezen baizik. Xabier Amuriza

Has dadila garaiz **erremedio** bila, soluzio bila bere problementzat. Iñaki Segurola

Goiz batez lanari uko egin nion eta medikuarenera joan nintzen, **erremedio** eske. Itxaro Borda

Nekazariek, izurritearentzat **erremedio** bila, Predikatzaileen Ordenako kide bati eskatu zioten aholkua. Askoren artean

Horrek haserre nauka, baina ez diot **erremediorik** ikusten. Jon Muñoz

Ez dago beste **erremediorik** ; nork bere bidea egin behar du. Berria - Euskal Herria

Max Planck batek, berak aitortzen du, quantumaren hipotesia "etsimenduzko egintza batean" atera zuen, beste **erremediorik** ez zuelako aurkitu, hau da, hoberik ez zuelako asmatu. Iñaki Segurola

Erremediorik ez zuen zerbait konpontzen. Anjel Lertxundi

Alboko andrazkoak lurrean utzitako otzara itzela eskumako oinaz zapaldu beste **erremediorik** ez zeukan Joseluk. Josu Landa

Gori-gori etxeak, aletegiak; baina suzko bi horma horien artetik jarraitu beste **erremediorik** ez du gizonak. Eskarne Mujika

Egia esan beste **erremediorik** ez zuela izan. Berria - Kultura

Bere erritmoa jarraitu beste **erremediorik** ez zait gelditzen, bere erritmo berean oroitzapenen zama arinduz joatea. Eider Rodriguez

Ez dauka beste **erremediorik** . Unai Elorriaga

-Ez dut beste **erremediorik** saiatzea besterik. Fernando Morillo

Hil artean bizitzea beste **erremediorik** ez dago eta, bitartean, zerbaitetan pasa behar da denbora. Lourdes Oñederra

Beraz, ezkorra izan beste **erremediorik** ez zaizu gelditzen. Rafa Egiguren

Pneumatikoen ildo-zirrituetan zegoen itsatsita zer nazkagarri hura, eta beste **erremediorik** ez haietako bakoitza eskuz, banan-banan, garbitzea baino. Joxe Austin Arrieta

-Eta zer **erremedio** geratzen zaio gizon burutsuari? Josu Zabaleta

Baina nola ez ninduten beste inon onartzen, zer **erremedio** ! Jesus Mari Mendizabal

Ordaindu behar izan du beti, ze **erremedio** , baita asea erabatekoa izan ez denean ere. Jon Alonso

Ze **erremedio** ! Arantxa Iturbe

2 (izan aditzarekin)

Turinera itzuli eta astelehenera arte itxarotea beste **erremediorik** ez zen, bada. Juan Garzia

Ez zuen akta ontzat ematea beste **erremediorik** izan. Ramon Saizarbitoria

Zureak badu **erremediorik** , eta berehala emanen dizut horren frogantza. Joan Mari Irigoien

Tristura horrek ere bere **erremedioa** izanen dik. Joan Mari Irigoien

Nire nahigabeak ez du **erremediorik** , eroria dut bihotza. Elizen arteko biblia

Baina eskandalu hark ez zuen **erremediorik** , zeren, hartaraz gero, zernahi galdetzen zitzaiolarik ere [...], alferrik izaiten baitzen. Joan Mari Irigoien

Seguruena pentsatuko huen beste **erremediorik** ez nuela izan, behartua nintzela horretara. Xabier Olarra

Eta hark ez zuen jada **erremediorik** , mirakuluz-edo baizen, eta Mattin heriotzako hersturan jarri zen. Joan Mari Irigoien

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Aztiaren altxorra edo *San Ziprianoren liburu handia* delakoan sorginkeria ugari eta **erremedio** onak aipatzen dira bihotz eroriari, eta beste hainbat organo elbarriri, sendabide egokiak emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gaixotasunen sorburu diren eragileak unibertsoko indarretan eta elementuetan zeudela esan zuen -hau da, gaixotasunak ez direla espirituek sortuak edo jainkoen zigorrak- eta **erremedio** naturalez sendatzen saiatu behar zela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mitoa izan daiteke, benetan, exortzismo-egintza erritual bat literatur narratibara pasatzea, non militarki garaile baina espiritualki atsekabetua dagoen barbaroa **erremedio** praktikoa aurkitzen ahalegindu den bere gaixotasun psikologiko suntsigarriarentzat. Iñaki Mendiguren

Ironia **erremedio** zuhurragoa da minaren kontra, kinina sukarraren kontra baino. Patziku Perurena

Gaixoak, berarengan **erremedio** osasungarririk aurkitu ez eta etsipenaren gaitzean eror ez daitezen. Ordurako indarra hartua zuen gaitzak, eta, ezer egitekotan, mediku trebezia izugarria eta **erremedio** gogorrenak behar ziren. Askoren artean

Jainkoarekin bakar-bakarrik egoteko aukera izango duen lekuren batera ateratzea da **erremediorik** egokiena. Josu Zabaleta

Alaitasun espirituala dela **erremediorik** seguruena etsaiaren azpikeria eta maltzurkeria guztien aurka. Askoren artean

Herioaren errautsa, hiltzeaz oroitzea, zeruko eta lurreko barberuek ediren lezaketen **erremediorik** hoberena. Imanol Zurutuza

Eta zein da, bekatuez damutzeko, **erremediorik** behinena? Joan Mari Irigoien

Izaerarenak ez du **erremedio** handirik. Arantxa Iturbe

Zortearenak ez du **erremedio** errazik. Berria - Kirola

Hurrengo gutuna, noski, T.-ko kronikara doa, eta orduan bai izanen duela aferak **erremedio** gaitz eta beranduzkoa. Berria - Kultura

Dipsomaniaren erabateko **erremedio** bakarra -esan zuen noizbait William Jamesek- erlijiomania da. Xabier Olarra

Luxuaren atseginak ez dira zorion honen elementu garrantzitsuenak, nahiz eta desberdintasunaren aurkako beharrezko **erremedioak** izan. Juan Martin Elexpuru

-Ez al dakik hotzaren aurkako **erremediorik** onena korrika egitea dela? Joan Mari Irigoien

Goitik behera hoa martxa honetan, hondamendira, berehalako **erremedioa** jartzen ez badiok! Joan Mari Irigoien

Etsipen horretan zegoela, azken **erremedio** bezala, San Frantziskorengana jotzea erabaki zuen Askoren artean

4 sendagaia.

Logalearen kontrako **erremedioren** bat-edo izango naiz ni, nonbait. Josu Zabaleta

Erremedioa jarri zion eta pixka batean horrela eduki; gero, bi eskuekin axal moduko zerbait kendu zion begi-xokoetatik. Jose Antonio Mujika

Ideia: diru biltzea ikerketen sustatzeko, eritasun berezi batzuen erroen hobeki ezagutzeko eta behar diren **erremedioen** sortzeko. Herria

Baina **erremedioak** ez zuen zerikusirik adarbakarrarekin, Irunberritik gertu dagoen Usungo monasterioan eginiko otoitzekin baizik. Martin Anso

Gaitz handientzat, **erremedio** handiak. Berria - Ekonomia

Lantegi horretan **erremedio** likidoak egiten dituzte eta berinazko untzietan ezartzen, flaskoak eta anpula injektagarriak bereziki. Herria

Kafea ekarri nion eta aran egosiak hartu nituen niretzat, idorreriaren kontrako **erremedioa**. Koro Navarro

Sorginkeria guztien aurkako **erremediotzat** zeukaten zuhaitz dotore hau. Pello Zabala

5 (hitz elkartuetan)

Berriz ere **erremedio** andana bat kendu dute asurantza-kutxak diruz ordaintzen dituenen lixtatik. Herria

· Ez baitzuen tarte horretan bere soinean zeraman Kristoren nekaldiko oinazea inolako giza **erremedioz** edo sendagaiz arintzerik nahi. Askoren artean

6 ***erremediorik*** *(orobat* ***erremedio gabe*** *g.er.)* *adlag/izlag*

gu hitzarmen batez loturik geunden, eta **erremediorik gabe** segitu behar genuen esmalte beltz hura hornitzen, eperik huts egin gabe. Juan Garzia

Erabateko hondamendia iritsiko zaio, bat-batean hondatuko da, **erremediorik gabe**. Elizen arteko biblia

Borgesek bizi gaitu, **erremediorik gabe** (izan, tamalez gu geu gara: **erremediorik gabe**, hori ere). Juan Garzia

Eredu-jartzailearen ale bat haiz **erremedio gabe**, eta badakik, berez, "gizon guztiak berdinak direla" haien iritzian eta begietan. Iñaki Segurola

Frazerren iritzia zera da, erlijio nagusiak funtsean eta **erremediorik gabe** antisozialak direla. Iñaki Mendiguren

Erremediorik gabea da zure hondamena, sendaezina zure zauria. Elizen arteko biblia

Aurelianok ez zuen negarrik egin Juan hiltzean, baina jadanik beraren bizitzaren parte den eritasun **erremediorik gabe** batetik bat-batean sendaturiko gizon batek sentituko lukeena sentitu zuen. Juan Garzia

Mantso obeditu zuen, **erremediorik gabeko** gauza bati men eginez bezala. Juan Martin Elexpuru

Batzuek uste zuten autista zela -eta ez zen-, beste batzuek **erremediorik gabeko** ergela. Jon Alonso

-Burua ondo ez dagoenean hori krudelkeria bat ez al da, minez akabatzen dauden **erremediorik gabeko** gaixoak bizirik mantentzea bezala? Pako Aristi

Arrunt mozkortzen direnetan edo opio hartzaile **erremedio gabeetan**. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken erremedio (3); **beste erremedio** (4); **du erremedio** (3); **erremedio bakarra** (7); **erremedio barik** (3); **erremedio bat** (7); **erremedio batzu** (3); **erremedio bila** (4); **erremedio eta** (9); **erremedio gabe** (13); **erremedio hoberik** (5); **erremedio hori** (3); **erremedio horiek** (6); **erremedio onak** (3); **erremedioa jarri** (8); **erremedioa jarri behar** (4); **erremedioa jartzeko** (5); **erremedioa jartzen** (3); **erremedioak ere** (3); **erremedioak hartu** (3); **erremedioren bat** (3); **eta erremedio** (14); **eta erremedioak** (3); **horri erremedioa** (4); **kontrako erremedioa** (3); **ze erremedio** (5); **zer erremedio** (17); **zuen erremedio** (3)

aurkako erremediorik (3); **bertze erremediorik** (4); **beste erremediorik** (293); **beste erremediorik ez** (203); **beste erremediorik gabe** (4); **beste erremediorik geratzen** (5); **beste erremediorik izan** (18); **bete beste erremediorik** (4); **bizi beste erremediorik** (3); **da erremediorik** (5); **dago beste erremediorik** (8); **dago erremediorik** (5); **dauka erremediorik** (4); **dik erremediorik** (7); **du beste erremediorik** (3); **du erremediorik** (19); **dugu beste erremediorik** (4); **dut beste erremediorik** (7); **dute erremediorik** (3); **duzu erremediorik** (4); **egin beste erremediorik** (11); **egitea beste erremediorik** (6); **eman beste erremediorik** (5); **erabili beste erremediorik** (3); **erremediorik ez** (235); **erremediorik ez badu** (3); **erremediorik ez bainuen** (3); **erremediorik ez dago** (12); **erremediorik ez dagoela** (7); **erremediorik ez dagoelako** (4); **erremediorik ez dagoenean** (3); **erremediorik ez dauka** (3); **erremediorik ez daukat** (5); **erremediorik ez daukazu** (4); **erremediorik ez du** (14); **erremediorik ez duela** (4); **erremediorik ez duen** (6); **erremediorik ez dugu** (8); **erremediorik ez dut** (5); **erremediorik ez dute** (4); **erremediorik ez dutela** (4); **erremediorik ez duten** (4); **erremediorik ez nuela** (4); **erremediorik ez nuen** (10); **erremediorik ez zaie** (3); **erremediorik ez zaigu** (3); **erremediorik ez zait** (3); **erremediorik ez zegoen** (5); **erremediorik ez zen** (4); **erremediorik ez zuela** (4); **erremediorik ez zuelako** (3); **erremediorik ez zuen** (23); **erremediorik ez zuten** (7); **erremediorik ezean** (3); **erremediorik gabe** (103); **erremediorik gabea** (4); **erremediorik gabeko** (24); **erremediorik geratzen** (5); **erremediorik geratzen ez** (4); **erremediorik hoberena** (5); **erremediorik izan** (18); **erremediorik izan ez** (4); **erremediorik onena** (12); **eta beste erremediorik** (3); **eta erremediorik** (15); **eta erremediorik gabe** (8); **ez dago erremediorik** (5); **ez dauka erremediorik** (4); **ez dik erremediorik** (7); **ez du erremediorik** (16); **ez dute erremediorik** (3); **ez duzu erremediorik** (4); **ez zuen erremediorik** (8); **geratu beste erremediorik** (3); **hartu beste erremediorik** (5); **hartzea beste erremediorik** (3); **horrek erremediorik** (3); **ia erremediorik** (4); **ia erremediorik gabe** (3); **jada erremediorik** (5); **jarraitu beste erremediorik** (3); **joan beste erremediorik** (4); **kontrako erremediorik** (3); **nuen beste erremediorik** (5); **onartu beste erremediorik** (14); **onartzea beste erremediorik** (6); **zegoen beste erremediorik** (5); **zuen erremediorik** (8)

---

erremedioki *iz* erremedioa.

Herriko zerbitzuek urean hedaturik gasoilkia jaten duen **erremedioki** bat, zenbait orenen buruko etzen gehiago ez kotsadurarik ez eta ere usain tzarrik... Herria

---

erremediotxo *iz adkor* erremedidoa xumea.

Begietako gaitz eta bista sendotzeko, tori **erremediotxo** hau: Intxusen kimue egosi, eta aren lurriñen jarri begiak eta sendatzen da begiko miñe. Pello Zabala

---

erremenbramendu *iz* oroitzapena.

Alabaina, haur zelarik oraino, buhameak bazter orotan kurri ibiltzen ziren garai loriosetan, **erremenbramendua** deituriko herriko funts eta etxaldeen berrantolaketa xedea eraman zen. Itxaro Borda

---

errementa *iz* tresna.

Bertzalde hor berean aldeko gelan mahain baten gainean ainitz jendek maite dute ikustea pilotaren erabiltzeko **errementa** guziak bai eta ere pilotaren egin moldeak berezitasun askorentzat. Herria

Larunbat goizean 11etan, aratsaldean 3etan eta aratsean 8ak eta erditan berdin finalerdiak **errementzat**. Herria

---

errementari *(orobat* ***erremintari*** *g.er.)* *iz* burdina eta kidekoak lantzen dituen arotza.

Errementariak burdin puska hartu eta, txingarretan goriturik, mailuka moldeatzen du, beso indartsuz lantzen. Elizen arteko biblia

Sarriegiren haurtzaroko eta gaztaroko Donostian, gremioetan banatutako gizarteak taxutzen zuen eguneroko bizitza, **errementariek**, marinelek, okinek, kandelagileek, gozogileek, upelgileek, aiztogileek, arotzek eta inprimatzaileek hain zuzen. Askoren artean

Aldi berean **errementari**, arkitekto, eskultore eta ingeniari, gai zen pareko trebetasunez lantzeko burdina zein zura.1956an jaioa, Teheran ondoko Garmsar herri langilean; aita **errementaria** zuen. Juan Garzia

Anton **errementariak** hondarra isuri zuen berun urtuaren ontzira. Anjel Lertxundi

Ontzia gotortzeko lanetara, berriz, hantxe etorri zitzaizkigun arotzak eta **errementariak**, eta artilleroak ere etorri ziren. Edorta Jimenez

Berdin ingude ondoan eserita dagoen **errementaria**, bere arreta burdingintzan jarria duelarik. Elizen arteko biblia

Hala ere, **erremintariak** burdinazko hagaz eta probidentziak arbel garbiaz hornituriko arkitektoek ezin zezaketen egokituriko hutsunea betetzeko era hoberik pentsatu berpizkunde heleniko bat susperraldi "gotiko" batez burutzea baino. Iñaki Mendiguren

Errementariak herri osoarentzat forjatzen duen bezala. Josu Zabaleta

Tzilak, berriz, Tubalkain sortu zuen; **errementaria** izan zen, brontze- eta burdin lanetan ari direnen arbasoa. Elizen arteko biblia

Zazpi mila handiki ere eraman zituen Babiloniako erregeak, bai eta mila **errementari** eta sarrailgile ere, denak gudari izateko gai. Elizen arteko biblia

Ez zen Israel osoan **errementari** bakar bat ere, honela esaten baitzuten filistearrek: "Ez da komeni hebertarrek ezpata eta lantzarik egin dezaten". Elizen arteko biblia

Hamazortzi urtegaz, **errementari** hasi zanean, soinu joteari itzi egin behar izan eutsan, hortik ezin ebala jornalik atara eta. Xabier Amuriza

Gero **errementari** egin nintzan. Xabier Amuriza

Bizitza normalean, bere mahonezko praka, arkondara koadrodun, gerriko baltz eta txapel hutsik bakoz jazten zan **errementari** baserritarra. Xabier Amuriza

Hala eginarazi genion auzoko **errementariari** latorri beltzezko erreaktor zilindriko halamoduzko bat. Juan Garzia

Igartza multzoaren barruan historia handiko eraikina izan den **errementari** etxeak ere nozitu ditu zaharberritze lanen ondorioak. Berria - Kultura

Umetan, bere basamortuan, **errementari** talde deskonfiatu baten balakuak eta zigorrak jaso ondoren, judutarren tabernakulu batean deserriratua izan zen, aurreneko Testamentuaren Kutxa altzoan zeramala. Patziku Perurena

Mutikoa hirurogeta hamar urteko irakasle-**errementariaren** aurrean daukagu. Xabier Amuriza

1577an, Escorial aldean, **Errementarien** bailaran. Pello Zabala

---

errementaritza *iz* errementariaren lanbidea.

Bestelako ogibide batzuk ere badute tokia solairu horretan: artilearen prestakuntza, joskintza, **errementaritza**, zapatagintza, espartingintza eta abarkagintza, esaterako. Berria - Kultura

Sasoi haretantsu, aitak **errementaritzea** ikasten bialdu eban, Erandioko Tomas Ruiz de Velascoren tailer handira. Xabier Amuriza

Rufino Arrolak **errementaritzea** itzi ebanean, gitxik usteko eban gazte batentzat be nekez eustekoa zan martxeari helduko eutsanik. Xabier Amuriza

Bere lanbide nagusi bietan, **errementaritzan** zein soinularitzan. Xabier Amuriza

Errementaritzan ez ezik, harotzerian be artistea zala dinoe seme-alabek. Xabier Amuriza

---

errementatu, errementa(tu), errementatzen da/du *ad* lehertu.

Behelainotan egotea urpean zutik egotea zen, oin puntak harea edo harria ukitzen, besoak hegatsen moduan behean egoteko ura kargatzen, bata bestearen aurrez aurre, bata besteari begira, koloreak galdurik, aurpegiak okerturik, birikak **errementatu** beharrean. Joseba Sarrionandia

Bost nebarrebok autopsiaren zain geundela, gure aita ohatilan etzanda zegoela, Imanol izan zen negarrez **errementatu** zena. Joseba Sarrionandia

---

errementeri *iz* errementaldegia.

Eurruna zela jakin nuen, elfoen **errementerietan** landutako altzairua bezain gogorra. Agustin Otsoa

---

erremerre *iz* ahoskatze akatsa, *r*-ari dagokiona.

Agustinek kirrimarro segitzen du; **erremerrea** zuzendu gabe. Anjel Lertxundi

Amonak goizerokoa gogoratu dio Agustini: handitzen zarenean, zure **erremerre** hori zuzentzen ez baduzu, ezingo duzu etxeko dendaren kargu egin. Anjel Lertxundi

Hizketa xelebrea du (kapitalekoa izan...), **erremerre** eta guzti. Xabier Etxabe

---

erremerreka *adlag* erremerre hitz eginez.

Ahoa harri koskadunez betea balu bezala bota du esaldia Agustinek, zakar eta **erremerreka**. Anjel Lertxundi

---

erremersiatu, erremersia, erremersiatzen *(orobat **erremesiatu** eta **erremestiatu**)* du *ad ipar* eskertu.

Bestalde, Irisartarrak elkarteak (pilota eta esku-baloia) **erremersiatzen** ditu Irisartarrak. Herria

---

erremin **1** *iz* erredurak edo gai erregarri batek eragiten duen oinaze sentipena. ik**sumin**.

Romanok hainbatetan adierazi zuen buruaren atzealdean **erremina** sentitzen zuela. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Zeinen arrotz bikote haiek gure inguruan dantzan, ametsetakoak iduri, gurma zarratuan lauso ikusten nituen, neska ezezaguna eta biok ginen errealitate bakarra han, izerdi hura, **erremin** hura gorputzaren zuztarrean. Koldo Izagirre

Ez ditugu, beraz, entzun behar suaren argia goresten eta **erremina** gaitzesten dutenen hitzak, ez baitira mintzo suaren izaerari begira, norbere erosotasunaren arabera baino. Imanol Unzurrunzaga

Bizpahiru gabirai zebiltzan, eguerdiko beroaren **erreminak** astunduriko hegaldi nagiaz, hauts harrotuaren inguruan. Anjel Lertxundi

Berotzeko, osatzeko eta sukalderako erabilgarriagorik deus ez dago, nahiz eta suaren **erremina** mingarria izan benetan. Imanol Unzurrunzaga

Ostikatuen **erremina** trufazko lanabes bihurtu du, eta ostikatzaileen atzaparkadarik zorrotzenak lotsagarriki utzi ditu nabarmen, harik eta peluxezko panpinak bilakatu diren arte. Txema Ramirez de la Piscina

Labean bezala erretzen daukagu larrua, gosearen **erreminez**. Elizen arteko biblia

Mutikotan entzundako horrek Rufinori min handia emon eutsan, antza, handik hirurogetamar urtera be, halako **erreminez** kontetako. Xabier Amuriza

2 (izenondoekin)

Eta izaten zuen **erremin** izugarriagatik, mihia ahosabaiari itsatsi eta ihartu egin zitzaion. Askoren artean

Gerra guztiak galdu egiten direla larrutik ikasi duenaren **erremin** gandutuarena. Anjel Lertxundi

3 (izenondo gisa)

Kea geratu zen gela handian, ke gordin eta zirina, ke **erremina**. Felipe Juaristi

Lehenengoz jo nuen egunetik gordetzen zuen, begiradan, desafio eta gorroto **erremin** bat. Iban Zaldua

---

erremindu, eremin(du), eremintzen da/du *ad* erresumindu, sumindu.

Orduan Nafarroako euskal jendea **erremindu** zen eta berehala erabaki zuten elgarren artean Karl Haundiaren azken tropa, berantenik pasatuko zena Ibañetako lepoan [...] han berean xehakatzea harroka ukaldika. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Halako iritziak eskuarki **erremindu** egiten naute. Juan Garzia

Pentsatu nuen ni **erreminduko** ote nintzen beldurrez nahiago izan zuela isilik geratu, Marga, emakume gehienak bezala, oso pragmatikoa baita. Ramon Saizarbitoria

Pentsatzen jarrita, hori da okerrena: ez nauela nirekin haserretzeko edo **eremintzeko** adina kontuan hartzen. Ramon Saizarbitoria

Haren mazelak oniritzia egin zion nire musuari eta horretan ezagutu nuen ez zela nirekin bart bezain **erremindua**. Aingeru Epaltza

Frantziskoren aitak, guztiz **erreminduta**, madarikatu egiten zuen semea berarekin topo egiten zuen bakoitzean. Askoren artean

Munduaren eta mundutarren ergelak betiko **erremindurik** utzi zuten gizonari. Iñaki Segurola

Ukoak **erremindurik**, etxea utzi zuen. Juan Garzia

Hori ikusiz, amorruz dago gaiztoa, **erremindurik** eta urtzen; gaiztoen ametsek porrot egingo dute. Elizen arteko biblia

Bihotz barnean **erremindurik** eta ustekabeko gertakari horiez kezkatuta, lagunak eta auzokoak bildu eta San Damianera joan zen lasterka batean. Askoren artean

Frantziskoren aita zen denetan sumindu eta **erreminduena**. Askoren artean

---

erremingostu, erremingots/erremingostu, erremingosten. du *ad adkor* erremindu.

Baina berehala zapuztu zitzaion loria, Marco Polo kodeaz eta komedianteaz oroitzearekin batera **erremingostu** zitzaion akordu gozo hura. Harkaitz Cano

---

erreminizentzia *iz* oroitzapen ahula eta lausoa.

Esklabo eskolagabearen jakiteak, dena den, oroipenarekin edo **erreminizentziarekin** du zerikusia, zeren ahantzia zuenaz oroitu egin baita. Askoren artean

Bestalde, **erreminizentziaz** oroitzen da hemen Platon: antzinago eta antzina pentsatuaz berroroitzen gara; beraz, gizakia nonbait zegoen antzina. Askoren artean

---

erreminta *(orobat **erraminta** g.er.)* **1** *iz* lanabesa.

Pastera ondoan harea pila bat, adreiluak, lurrean hor eta han kapazo bat, errejazko hesi txiki bat, borra, pala, paletak, taladroa eta beste zenbait tresna eta **erreminta**. Pablo Sastre

Antropologoen arabera, gizona, hain zuzen ere, sortu zuan, hatz lodia tolesteko ahalmena bereganatu zuen unean, horrela izan baitzuen arma edo **erreminta** eskuan hartzeko ahalmena. Xabier Olarra

Oihanetik atera zituan, lau mila langile, gerriraino lokaztuak, soina biluzik; beren **erremintak** lurrean ezarri, aizkora eta pala, eta nahikoa zela esan zitean. Xabier Olarra

Tresneriak bai, iragarpenetako baliabide diren **erremintak** aurreratu ederra jasoak dira, horratik! Pello Zabala

Ederki pulitu eta erabiltzeko prest dagoen **erreminta** bat mekanikoak aztertzen duen bezala. Anton Garikano

Baserri askotan, sarde-koilarak urki-zurez egin ohi zituzten: ziurtzat zuten, **erraminta** horiekin janez gero, hezueria eta beste gaitz asko uxatuko zituztela. Pello Zabala

Lurrean eseri eta Mintak **erremintak** eskuratu zizkiola. Anton Garikano

Zenbait **erreminta** generamatzan ateak edo leihoak behartu ahal izateko. Rafa Egiguren

Biseradun txanoek lanerako **erremintak** eta makina astunak egiten zituzten konpainien marka-irudiak zituzten inprimatuta. Oskar Arana

2 irud/hed

Partidu horrek estatuaren **erreminta** guztiak lotsagabeki, propio, erabili dituelako bere interes politikoetarako. Txema Ramirez de la Piscina

Haziari, erne ahal izateko, lur emankorra ezinbestekoa zaion bezala, hartzaileak ere **erreminta** egokiak behar ditu: bestelako eredu komunikatiboa. Txema Ramirez de la Piscina

Poliza bat dauka, denetarako **erreminta** horietako bat, edozertarako balio diona. Xabier Olarra

Azken batean, hitza dute **erreminta**. Hasier Etxeberria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta **erreminta** fabrika batera al zatoz lan bila? Jon Maia

Bazen **erreminta**-kutxa bat logela ondoko ohe-jantzien armairuan. Oskar Arana

Joan nintzen, bada, **erreminta**-kaxarekin goiko solairura: gurasoen gelara, zuzen-zuzenean; ireki nuen kaxa, tresneriatik mailua eta iltze luze batzuk bereiziz. Joan Mari Irigoien

Azken batean Albert Matson jaunaren emaztea zen bera; aurretiaz, Laura Whitmore andereñoa, Drop Forge and Tool Works Whitmore forja eta **erreminta**-makina lantegikoen senitartekoa. Mirentxu Larrañaga

4 zakila.

Isurtzeko zegoen unean bertan, ahotik atera nuen **erreminta** eta eskuarekin amaitu nuen lana, ziurtatuz haren salda baliotsu hura nire blusan isurtzen zela zipriztinka. Oskar Arana

Leherrenak eginda ere, ezin zuen **erreminta** zulotik atera; zeren ordurako neskaren zukua substantzia likatsua bihurtua baitzen, loctite hutsa, "Aggggg!". Patxi Iturritegi

5 ***makina-erreminta*** *(**102** agerraldi, liburu **1** eta **38** artikulutan)* metalei forma emateko makina.

Bilboko **Makina-Erremintaren** Biurtekoan aurkeztu berri dute robota. Berria - Gaiak

Makina erremintaren erakustazokak BECeko pabiloi guztiak hartuko baititu. Berria - Harian

Makina erreminta sektoreak erronka indartsua du aurrean. Berria - Gaiak

%10,4 jaitsi da **makina erreminten** ekoizpena. Berria - Ekonomia

Iaztik hona nabarmen murriztu dira **makina-erreminten** eskariak. Berria - Ekonomia

Makina-erreminten Diseinu lehiaketa. Berria - Ekonomia

---

erremintaje *(corpusean **erramintaje** soilik) iz adkor* lanabesak.

Arantzazuko **erramintajea** eta tresneria behatoki osatu batekoa zen, osagai bat edo besteren gorabehera. Pello Zabala

---

erremintari ik **errementari**.

---

erremisore *iz* jasotzen duen seinalea anplifikatu eta berriro emititzen duen gailua.

Dena dela, hori esanda, gehitu nahi dut dekretu zirriborroan tokian tokiko telebista lehenetsi dela eta kateei eta **erremisore** hutsak diren telebistei ateak itxi egin zaizkiela. Berria - Euskal Herria

---

erremista *iz ipar* gizarteratzeko gutxieneko laguntza hartzen duen pertsona.

Irisarriko Ospitaliaren kasuan departamenduak zazpi **"erremista"** hartu ditu zortzi hilabeterentzat, publikoaren ongi etorria eta bisitak segurtatzeko: gastua, 18 500 euro. Herria

Urrats berean bastiza berritu nahi dute, "chantier/école" moldean hamabost bat **erremista** etxegintzan formatzeko. Herria

Elkarte horiek sortuak dira bereziki **"erremistak"** laneko munduan emeki emeki sartzen laguntzeko. Herria

615 **erremista** badirela Angelun, 900 familiek laguntza soziala baliatu dutela, sail horren lana ehuneko 47an emendatu delarik urtea barne. Herria

---

erremite *iz* igorlearen izen eta helbidearen adierazpidea.

Erremitean irakurri zuen: John Rhys. Joseba Sarrionandia

Nik ere karta bat idatzi nion nire buruari: **erremitean** nire Brooklyngo helbidea jarri nuen eta kartazalean berriz Donostiakoa. Harkaitz Cano

Zigilua Bartzelonakoa zuen, eta Adelak idatzia zirudien, **erremitearen** arabera. Joan Mari Irigoien

Igogailuan gora zihoanean, ohartu zen Londresko helbide bat zekarrela **erremiteak**, guztiz ulergaitza zen letra batez idatzita. Joxemari Iturralde

Haietako bat kartazal handia zen, eta ez zuen inongo **erremiterik**. Joxemari Urteaga

Tamaina txikiko gutunazal bat eskaini zidan. **Erremiterik** gabe zetorren. Bernardo Atxaga

---

erremititu, erremiti(tu), erremititzen du *ad* bidali, igorri.

Arrazaren kontzeptuak "remite más que (a singularidad biológica a x)" egiten badu, **erremititzen** du singularitate biologikora ere. Joxe Azurmendi

---

erremix ik **remix**.

---

erremolatxa **1** *iz* baratze landare hosto-handia, sustrai mamitsua duena*(Beta vulgaris)*; delako sustraia. ik **beterraba**.

Oholesiaz bestaldean alor ikaragarri zabalak ikusten ziren, eta, han ereinda, azak, tipulak, patatak, **erremolatxak** eta bestelako barazkiak. Jose Morales

[Baratzean] lore-sailak eta neguko barazkiak -azaloreak, patatak, **erremolatxak**, zerbak, tipulak- ikus daitezke. Oskar Arana

-Arbiak jar genitzake, edo **erremolatxak** -esan zuen sukaldariak. Jose Morales

Prezio berean saltzen zituzten aberats zortedunek azukre nahiz bazkatarako **erremolatxak**. Urtzi Urrutikoetxea

Bill Shaw ere badago, hura ere zapala, sukaldeko mahaian tea edaten, **erremolatxa** gorriaren koloreko aurpegiarekin eta ile urdinduarekin, eta lepo nasaiko jertse bat jantzita. Oskar Arana

Erremolatxa buru luzeak, tenple onenaren zain, gurdika-gurdika, ukuilu eta mandio bazterrean gordetzeko. Pello Zabala

Onddo-kapelaren azpian, gizonaren aurpegia gorri-gorria zen, **erremolatxaren** antzekoa. Lopez de Arana

Izarretatik izarretara, enkargatuaren begiradapean, garia edo **erremolatxa** biltzen, ehunetik gora lagun lerro-lerro aritzen ziren. Pablo Sastre

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurrengo **erremolatxa** uztarekin kezkatuta agertu zen atzo Eloy Lopez de Foronda Arabako nekazaritza ahalduna. Berria - Ekonomia

Erremolatxa-aurpegiko gizon sendokote bat. Lopez de Arana

Arabako **erremolatxa** azukrearen desagerpena ekarriko duen erreforma onartu zuen atzo Europako Batzordeak. Berria - Ekonomia

Han, eguneko edozein ordutan emango zizkizuten **erremolatxa** potaje gorri-gorria, arrain errea edo gisadua. Matías Múgica

Gauetan patatak haragi saltsaren ordezkoarekin eta **erremolatxa** entsalada jaten dugu beti. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Azukre-**erremolatxak** alimentu gehiago daukala eta elikagarriagoa dela. Urtzi Urrutikoetxea

Zopa bazka-**erremolatxa** eta arbi-azaz egina zen egun hartan. Urtzi Urrutikoetxea

Orotara, 2.700 hektarea **erremolatxa** landu dira aurten, aurreko urteetan baino gutxiago. Berria - Ekonomia

---

erremolka ik **erremolke**.

---

erremolkatu, erremolka(tu), erremolkatzen du *ad* atoian eraman.

Esan zuen bere lagunak izan zirela politikariak eta bera, Luvino, **erremolkatuta** ibili zela, lagunen atzetik, eta lar ona izan zela orduan eta horregatik egon zela kartzelan. Unai Elorriaga

---

erremolke *(orobat **erremolka** g. er.) iz* atoian eramaten den ibilgailua.

Mahastietatik bide errazagoa zuten inondik ere, baina egun haietan ez zegoen bertatik pasatzerik traktore, **erremolke** eta langile pilarekin topatu gabe. Jokin Muñoz

Han, hantxe bertan, arrakalaren sakonean 80 edo 90 metrora, **erremolke** sobietiko bat ikusiko da. Joseba Sarrionandia

Goizean goizik bazihoazen inguruetako laborariak beren kabalekin, behi edo ardi, **erremolka** bat zaldikarrosari loturik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oso nekeza dela fardelak ekipaje tokira igo behar izatea, eta agentziak hobe lukeela fardelak garraiatzeko **erremolke** ttiki bat erantsi izan balu. Patxi Zubizarreta

Non zer ikusi egin zuen poliziak, begiak ezertan ipini gabe; gero gabarrako koxkan bota jarri, **erremolke** barnea miratu zuen. Pablo Sastre

---

erremonte **1** *iz* pilota jokoa, xisteraz eta atxikirik egin gabe jokatzen dena.

Aizarnazabalgo semeak 18 urte ditu, eta bederatzi urte daramatza **erremontean** jokatzen. Berria - Kirola

Ia 15 urte daramatza **erremontean** profesional gisa. Berria - Kirola

Erremonteko finaletako usadio denez, Koteto Ezkurrak eta Iñaki Lizasok bihar goizean Galarretan apartatuko dituzte larunbateko partidan erabili beharreko pilotak. Berria - Kirola

Erdi lanetara iritsi da **Erremonteko** Desafio Torneoa, eta ez du orain arte bikote bakar batek ere hirukoterik menpean hartzen asmatu. Berria - Kirola

Erremontekoa oso pilotaleku luzea da, eta lehen pilotakadan ondo hasten ez baldin bazara, tantoan erdipurdi ibiltzearen arriskua duzu. Berria - Kirola

Urte Berri egunez bi pilota jaialdi garrantzitsu egon ziren, esku-huskakoa Bergaran (Gipuzkoa) eta **erremontekoa** Uharten (Nafarroa). Berria - Euskal Herria

Kike Elizaldek agur esan zion herenegun **erremonteari**. Berria - Kirola

Jende gutxiago dator **erremontea** ikustera. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan)

Bi beteranok, **erremonte** munduko bi zakur zaharrek berriro ere elkar ikusiko dute gaur Galarretan, Casino Kursaal Torneoko lehen kanporaketan. Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan **erremonte** jaialdia izan zuten atzo. Berria - Kirola

Frontoi berria eraiki zuten han, eta **erremonte** jaialdiak Iruñeko erdigunetik urrundu ziren, bide batez. Berria - Euskal Herria

Ez da emaitza hori ohikoa izaten **erremonte** partidetan. Berria - Kirola

Erremonte jokalaririk onenak izango dira, helburu bakarra buruan: interesa berpiztea, Juan Antonio Erzilla enpresako kudeatzailearen hitzetan. Berria - Kirola

Buruz buruko **erremonte** lehiaketa hasiko da 22an; irabazlea Casino Kursaal Torneoan ariko da. Berria - Kirola

Aurtengo Binakako **Erremonte** Txapelketak berriak ditu izena, lehiaketa sistema eta hiru pilotari. Berria - Kirola

Binakako Faustino **erremonte** txapelketak gaur osatuko du finalerdietako koadroa. Berria - Kirola

Iragan ostegunean, Binakako Faustino **Erremonte** Txapelketako finalerdietako lehen partida galdu ondoren, gaur, irabaztera derrigortuta daude. Berria - Kirola

San Fermin Torneoko **Erremonte** finala. Berria - Kirola

Garikoitz Altunak eta Jokin Etxabek osatzen dutena izango da Binakako Faustino **Erremonte** torneoko finalerdiak jokatuko dituen hirugarren bikotea. Berria - Kirola

Erremonte koadroko izar gazte trebeenetako batek Galarretako estelarra jokatuko du gaur. Berria - Kirola

Insalus **Erremonte** Masters-a. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

binakako erremonte (13); **binakako erremonte txapelketa** (4); **binakako erremonte txapelketako** (3); **binakako faustino erremonte** (3); **buruko erremonte** (5); **buruko erremonte txapelketako** (3); **buruz buruko erremonte** (5); **casino kursaal erremonte** (9); **da erremonteko** (4); **daramatza erremontean** (3); **dute binakako erremonte** (3); **erremonte jaialdia** (3); **erremonte txapelketa** (7); **erremonte txapelketak** (3); **erremonte txapelketako** (15); **erremonte txapelketako finalerdietako** (3); **erremonte txapelketaren** (3); **erremontean jokatzen** (3); **erremonteko desafio** (3); **erremonteko izen** (3); **faustino erremonte** (4); **kursaal erremonte** (9); **kursaal erremonte txapelketako** (7)

---

erremontista 1 *iz* erremontean jokatzen duen kirolaria.

Nafarroako kirolari ezagun asko zeuden han: Osasuna eta Portlandeko jokalariak, pilotariak, Koteto Ezkurra **erremontista**, Patxi Vila txirrindularia... Berria - Kirola

Erremontistek beti esaten duzue sakea dela gakoa. Berria - Kirola

Hirugarren partidan, lau **erremontista** gazte kantxaratuko dira: Iribarren eta Olazar, Uterga eta San Miguelen aurka ariko dira. Berria - Kirola

21-9 jarri zirenean, Kotetok barruan daraman **erremontista** sena erakutsi zuen. Berria - Kirola

Gaurkoan, Galarretako kantxan, koadroko bi **erremontista** hoberenako bik neurtuko dituzten indarrak. Berria - Kirola

Atzo zortzi ziurtatu zioten igandean itzuliko zela, eta **erremontista** zailduak kirioak airean zituela pasatu zuen aste osoa. Berria - Kirola

Zeberio punta-puntako **erremontista** da, eta atzean gogor astinduz markagailuan hurreratzea lortu zuen 15-16. Berria - Kirola

• **2** *izond* erremontearena, erremonteari dagokiona.

Koadro **erremontistan** osa daitekeen bikote onena, Ezkurra eta Lizaso, hiruko gogor baten aurka arituko da gaur arratsaldean. Berria - Kirola

---

erremorka *iz ipar* erremolkea.

Hara sartzeko ere ez baitzuen **erremorka** laguntzarik nahi, dotzena bat oren igurikarazi dute kaia hegirat utzi aitzin. Herria

---

erremorkari 1 *izond ipar* erremolkatze lana egiten duena.

"Balea" deitu dute eta hori da Baionako merkatal-ganberak erosi duen untzi **erremorkaria**. Herria

• **2** *iz ipar* erremolkatze lana egiten duen ontzia.

Pasaiako portuaren parean zelarik **erremorkari** baten laguntzari ezetz erran diote Konstantinos untzitik, eta segitu dute Bilboko porturaino. Herria

Hainbestenarekin, Baionan zeuden bi **erremorkariak** Konstantinos-aren tiratzen hasterakoan panan jarri dira! Herria

---

erremuli *iz ipar* erromeroa *(Rosmarinus officinalis)*.

SS-ek hamarnazka hektara zuen landa batean senda belarrak egiten zituzten, presoen gostuz: xarpota, **erremulia** (romarin) eta beste... Salmenten sosa SS-en moltsara zihoan, presoei kendu gauza balios guziak bezala. Marzel Etxehandi

---

erremusina *iz* limosna.

Lamiei ere eman behar zaie **erremusina**. Koldo Izagirre

Lautariko *middôt*-ak dira **erremusina** ematen dutenen artean; lau dira, halaber, eskolara doazenen artean. Xabier Kintana

Bai baitzekien poetak, bai baitzekien kantariak urria dela eman zaion **erremusina**: une baten aberastasuna, besterik ez. Juan Luis Zabala

Ikusiak zituen Venezian eta Genovan, merkatari holandarrak bizi ziren karriketan ere, hango eliz atari eta jauregietan hirunaka, launaka, bosnaka, seinaka, zazpinaka halako tresnaz musika joka, jendearen **erremusina** eskatuz trukean. Felipe Juaristi

Utzi zaituenak **erremusina** eskatzen dizu bortañora hurbilduta. Koldo Izagirre

Hala zeharkatzen dute herria, **erremusina** eske. Koldo Izagirre

Al-Husainen meskitara jo ohi zuen otoitz egitera eta diru eta ogi **erremusinak** banatzen zituen meskita ingurumarietako eskaleen artean. Patxi Zubizarreta

---

erremuskada *iz* marmarra. ik **purrustada**.

Hemen ere hil arte entzun eta berrentzun beharko ote dut hire **erremuskada** madarikatua? Txillardegi

Nagusiari ez dio inoiz **erremuskadarik** egiten, eta gaizki hartzen badute ere, sekula arranguratzen ez. Gotzon Garate

"Honeek nik ez dodaz behar!" - **erremuskadea** egin eban eta, erretirau ez balebez, ostikoz jaurtiko ebazan. Xabier Amuriza

---

erren[1] ik **herren**.

---

erren[2] ik **errain**[1].

---

errenazentista *(orobat **ernazentista** g.er.) izond* errenazimentukoa, errenazimenduari dagokiona.

Elementu formal gotiko, **errenazentista** eta barrokoak ageri dira nonahi, baina ez nola hala nahasian. Anjel Lertxundi

Green Sleeves eta beste abesti **errenazentista** batzuekin egindako bikote dantza zoragarria. Berria - Kultura

Angulemako Margarita (Albreteko Enrike II. aren emaztea zelako 1525ean nafarren erregina bilakatu zena) idazle **errenazentista** oparoa izan zen. Askoren artean

1569an argitaratu zuen *La Araucana* izeneko poema epiko **errenazentista**. Berria - Kultura

Plaza osoa ikus dezaket hemendik: gorriz eta horiz eta laranja argiz margoturiko fatxada zaharberrituak, galeria zuriak, teilatu okerrak, **errenazentista** itxurako jauregia. Iban Zaldua

Hilabete **errenazentistak** izan ziren, florentziarrak, baina niri inporta ez. Karlos Zabala

---

errenazimendu ik **errenazimentu**.

---

errenazimentu *(orobat **errenazimendu**, **ernazimentu** eta **ernazimendu** g.er.) iz* **1** antzinateko Grezia eta Erroma erredutzat hartuz XV. eta XVI. mendeetan gertatu zen ideien eta arteen eraberritzea. ik **pizkunde 5**; **berpizkunde 4**.

Errenazimentuak "garai argitsua" izan nahi zuela azaldu zigun, eta eguzkia hartu zuela ikurtzat, Galileok unibertsoaren erdian kokatu berria zuen astroa. Bernardo Atxaga

Hamabosgarren mendean, **"Errenazimentua"** loraldi betean zegoenean. Iñaki Mendiguren

Mediterraneoko ardatz horretan zeuden, hain zuzen, garai hartako Europako herririk aurreratuenak, eta hantxe zabaldu zen **Errenazimentuaren** hazia, herri hizkuntzak suspertu eta, pixkanaka, latina baztertu zuena. Koldo Zuazo

Errenazimentua, Erreforma protestantea eta Kontrarreforma katolikoa izan ziren herrietako hizkuntzak goratu, eta idatzirako ereduak sorrarazi zituztenak. Koldo Zuazo

Errenazimentuan erantzun zuten guneak italiar *Risorgimiento*-an eraginkortasunik gabeak gertatzen dira, eta gidaritza Piamontek hartzen du, Italiaren aurreko lorialdietan parterik izan ez zuenak. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroko eta **Errenazimentuko** filosofiari buruz lan asko argitaratu zituen; baita Italia bateratzearen ostean sortu ziren arazo kulturalen inguruan ere. Berria - Kultura

Italiarat joaitea zela bere bizitzako ametsa, **Errenazimentuko** maisuen koadroen bertatik bertara ezagutu ahal izaiteko. Joan Mari Irigoien

Lehengo sarrera Felipe II.aren garaiko zutabedun ataria da, **Errenazimentuko** artista zoragarriek landua, denborak eta jolasean dabiltzan umeek higatua; euriek, ilargiak eta itsas haizeak jana. Koldo Izagirre

Italiar **Errenazimentuak** Frantziako eta Alpeez bestaldean Mendebaldeko beste herrialde batzuetako arteari eta literaturari eragin zienean. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan) ik **errenazentista**.

Errenazimentu giroan, era berean, esaera zaharrak eta herri kantuak bildu ziren: Esteban Garibai arrasatearra nabarmendu zen horretan. Koldo Zuazo

Errenazimentu garaiko ipuinak ziren, eta kontalariak gizarteko maila goreneko giroan kokatuak. Koldo Zuazo

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ernazimentua euskaraz** (4)

---

errendarazi, errendaraz(i), errendarazten du *ad* errendatzera behartu.

Matraka kolpeka **errendarazi** zituzten odola kopetan zeriela, garrasika barreiatzen ziren hainbat militante ezagun. Itxaro Borda

---

errendatu, errenda(tu), errendatzen **1** du *ad* bihurtu, itzuli, eman.

-Nik **errendatu** behar dizkiat eskerrak hiri, zeren eta hire hitz horien igurikitzan bainengoen, Joanikot! Joan Mari Irigoien

Kontuak **errendatzen** ari natzaizunez, zehatz nahi dizkizut **errendatu**. Jon Muñoz

Neskatilak, hobeki ulertuko diolakoan emakumeari dio bere baieztapena **errendatzen**. Jose Angel Irigaray

Hain artoski ditut neure hitzak eta emakume horrek eman dizkidan erantzunak aztertu, non batzuk zein bertzeak gogobeteko zaituen zehaztasunaz **errendatuko** dizkizudala uste baitut. Jon Muñoz

Bihotz onekoa behar du bere adiskideari eta niri zerbitzu **errendatzera** berariaz hona jina izateko! Jon Muñoz

San Martin kanalaren hegira iristean, so bat atzera botatzen nuen atzera jarraitzaile sutsuek beren obra zikinari uko egin ziotela kontu **errendatzeko**. Itxaro Borda

Cecile Crouspeyre eskolaren buruzagiari zagokion gero bere ikastetxeko gora-beheren kondu **errendatzea**. Herria

• **2** da *ad* errenditu, borrokan etsi.

Ekaitzak hartuagatik, kontrako haizeak joagatik, ez baitira berehala **errendatzen** eta ez bihotzildu eta etsitzen, ez portuan sartu arte laxatzen, eta ordura arte beti entseatzen eta bermatzen baitira. Imanol Zurutuza

Zeren eta txori erdi galdu bat baitzen ene bihotza, hegada bizkorregian zebilkidana... eta hegadaren bizkorrak ahitzen eta **errendatzen** ninduen, eta pentsatzeko indarrik eta kemenik gabe uzten. Joan Mari Irigoien

Deliberatua nintzela neure indarrak geroratzera, eta hura akiturik noiz **errendatuko** zitzaidan eginahalik gabe igurikatzera. Jon Muñoz

Errenda dadi, baina borroka dadi; garaitzeko indarrik ezean, izan beza aihertzeko indarra. Jon Muñoz

Zeren zinez bainengoen amorosiak jorik eta ene amorio hari **errendaturik**. Joan Mari Irigoien

---

errendatze *iz* errenditzea, borrokan etsitzea.

Ez da beraz, nire bertze abenturetan bezala, **errendatze** gutxi edo asko abantailatsu soil bat, profitatzen errazagoa izaten dena nor bere buruaz harrotzeko baliagarria den baino; erabateko garaipena da, gudaldi lazgarri batez erdietsia, eta guda lan jakintsuz deliberatua. Jon Muñoz

---

errendebu *iz* hitzordua.

Hitzordua gauzatu genuen, beraz, edo, berak erromantikoki zioen bezala, **"errendebua"**. Aitor Arana

---

errendiarazi, errendiaraz(i), errendiarazten du *ad* errenditzera behartu.

Iruñea berreskuratu berritik zuzenean etorrita, bat egiteko puntuan egon zen Zangoza **errendiarazi** berri zuen aragoiar konpainia batekin. Aingeru Epaltza

---

errendiezin *izond* ezin errendituzkoa.

Inork ez du sentitu, ordea, haietako dorre jendetsu nahiz hiribide presatuetan, Hegoamerikako bere hiribazter txiroan Ireneo doakabeak, egunez eta gauez, atergabe jasan behar zuena bezain errealitate **errendiezin** baten bero eta presioa. Irudimenak har ditzakeen bi bideetatik, Borgesek ez du aukeratzen beste mundu batzuk asmatzearena (merkeegi iritziko lioke, edo debaldekoa akaso), mundu honexen xehetasunik arruntenetan datzan harrigarritasun **errendiezina** agerraraztearena baizik. Juan Garzia

---

errendimendu *(orobat **errendimentu** g.er.)* **1** *iz* erabiltzen diren bitartekoen eta lortzen den emaitzaren arteko proportzioa.

Makina hilkorra aztertzean, egiturari erreparatu behar genioke lehenik; hurrena, mekanismoei, eta, azkenik, kontrolguneari eta diseinua edo **errendimendua** hobetzeko aukerei.Txirrindulariak bere **errendimendua** %10 hobe dezakeela dio. Irene Aldasoro

Ezker eskuarekin izandako hobekuntza al da aurtengo **errendimenduaren** gakoa? Berria - Kirola

Lanean, ingurunea atseginagoa bihur daiteke, langileen **errendimendua** handiagotuz. Berria - Gaiak

Bere bizitzako pasadizo hori kontatu bazuen izan zen zuritzeko zergatik uzten zuen bere ondasunen **errendimenduaren** parte bat hilero jende on baina behartsuaren artean bana zezaten. Bego Montorio

Ekoizpenen antolamendu faltak, **errendimenduen** beherakadak eta landako langileen emigrazioak argi uzten dute, hasteko, nekazaritzaren porrota. Koro Navarro

Taldearen **errendimendua** ez da behar bezalakoa, eta ez du hobera egingo ni entrenatzaile karguan nagoela. Berria - Kirola

Berrikuntzak baino nahiago dute errepikapena, arma bakarra, gorputzaldia nolakoa, **errendimendua** halakoa. Berria - Kirola

Beti dago zer hobetu, **errendimendua** beti izan daiteke hobea, eta koska hori nabarmendu nahi nuke. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunetan)

Xenobankuek [...] **errendimendu** handiak eskain ziezazkieketen beren bezeroei. Koro Navarro

Gorputzaren erregai-sistemak **errendimendu** harrigarria erakusten du egiaz. Irene Aldasoro

Izandako minutuei **errendimendu** bikaina atera die. Berria - Kirola

Errendimendu eskasa eman zuen oso. Berria - Kirola

Bronkitisa sendatuta, bere **errendimendu** fisikoa probatu nahi du gaur. Berria - Kirola

Errendimendu handiko eguzki plakak. Berria - Gaiak

Kirol arloa: Zubieta **Errendimendu** Handiko Zentro egin. Berria - Harian

Errendimendu akademikoan eta adimen gaitasunean eragiten duten buruko alterazio eta nahaste neurologiko arinak saihestea da kanpaina honen helburua. Berria - Gaiak

Bete-betean asmatu zuen Jose Mari Bakerok txiletarra fitxatzean eta «berehalako **errendimendua**» emango zuela esatean. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Errendimendu bilaketak, gizakiaren osasunaren eta ingurunearen kalterako izanik ere, mozkinak areagotzea besterik ez duenean helburu, orduan, produktibitatearen bilaketak produktibismoari ematen dio txanda. Iñaki Heras

· Kortajarena, Martinez eta Jon Sasiain Bartzelonako eta Madrilgo goi **errendimenduko** guneetan ari dira. Berria - Kirola

Azkenean kirol **errendimenduak** kontratua sinatzeko garaian pisu handia dauka. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere errendimendua (10); **bere errendimenduaren** (5); **bere errendimenduaren inguruan** (3); **errendimendu handiko** (5); **errendimendu hobea** (7); **errendimendu hobea ematen** (3); **errendimendua ez** (5); **errendimendua ez da** (3); **errendimendua hobetzeko** (6); **errendimendua hobetzen** (3); **errendimenduaren inguruan** (5); **eta errendimendu** (4); **eta errendimendua** (3)

errendimenduen eta (3); **goi errendimenduko** (4)

---

errendimentu ik **errendimendu**.

---

errenditu, errendi(tu), errenditzen **1** da *ad* etsaiaren aurrean amore eman.

Militarrek hiri batean probatu nahi zuten, japoniarrak lehenbailehen **errendi** zitezen. Fernando Morillo

30.000 preso **errenditu** ziren. Jokin Urain

Hilabete geroago **errenditu** zen Amaiur. Aingeru Epaltza

Gure gazteluko gotorlekua **errenditzea** besterik nahi ez duzuelako. Jon Alonso

Holofernesen aurrean **errenditzeko** eskatu zieten, hobe zela hori egarriak hiltzea baino. Jose Antonio Mujika

Egunkariek esaten zuten iparramerikar ejertzitoak urtean hogei mila gerra operazio egiten zituela Vietnamgo lurretan, eta vietnamdarrek **errenditu** beharko zutela azkenerako. Joseba Sarrionandia

2 amore eman, aurre egiteari utzi.

-Bizitza osoa borrokan ibili da, eta orain ez da **errenditzeko** gauza, besterik ez -esan zuen amak-. Jon Muñoz

Goitik eta kanpotik dator aurreneko ezpatakada, egia, baina **errenditzea**, amore ematea eta heriotzako kolpea etxetik, barrendik, guhaurenganik. Iñaki Segurola

Indianoa ohituta zegoen neskak aise **errenditzera**, dirua berogarri ezin hobea baita bakartien ohetarako, eta Juana Bixentaren ezezkoak atzenarazi ordez, adoretu egin zuen gizona. Anjel Lertxundi

Bere gorputz sendo eta gihartsuak trapuzkoa dirudiela, konorterik gabe jada, **errendituta**, zutik iraun ezinean dagoenekoa. Ramon Saizarbitoria

Isiltasunean, eta leiho zabal baten aurrean, edozein delarik ere dakusaten paisajea, pentsamenduak ihes egiten die, buruan **errenditzeko** sosegurik aurkitzen ez eta. Pako Aristi

Men egina neukan, **errenditua**. Jon Muñoz

Jakite hartaz honuztik **errenditu** beharrak tristetzen ninduen. Iñaki Segurola

Behin Jose Egiaren semeak, Paco Buenora inguratu zitzaien batean, esan zienean okerrena ez zela **errenditzea** izan, baizik eta isilpean, Errepublikari ohartarazi gabe, **errenditu** izana, berak arrazoi eman zion. Ramon Saizarbitoria

Hik esaten duana, Herr!, **errenditzen** gintzaizkion. Anjel Lertxundi

Nekatzen nintzenean, aurpegia konketako ur freskoaz busti, eta irakurtzen jarraitzen nuen loak **errenditzen** ninduen arte. Anjel Lertxundi

Loak ez nau lehen bezala **errenditzen**. Anjel Lertxundi

3 (-n deklinabide atzizkiarekin)

Ahal genuena eginez, ipurdi-heltzen, titi-jorran eta musuka, han **errenditzen** gintuan. Pako Aristi

Platoni traktore itxurako hodeiarekin gertatu bide zitzaion bezala gertatzen zitzaion B-ri ezein forma ezagunetan **errenditzen** ez zen hodei baldres horrekin. Jon Alonso

Boxeo kontu horiekin hasi zirenetik, ezin da etxean **errenditu**. Bernardo Atxaga

4 (-ra deklinabide atzizkiarekin) ekarri.

Begi itsuak dira ikusgarri hutsera **errenditutako** begiak. Iñaki Segurola

Ahalmen triste horrexek pentsarazten digu mundu objektiboa bera ere geure metaforetara **errenditzen** dugula, eta hala mendera dezakegula. Juan Garzia

Nola euskara ez den oro erdara baita bere izatez, Euskal Herria ez den guztiak Erdal Herria izatera **errenditu** beharko luke baitezpada. Iñaki Segurola

Dowland, dublindarra, bere herrian bizitzera **errenditu** ezin eta mundua ibili zuen alderik alde alderrai. Felipe Juaristi

Beharbada -diot orain- orduan hasiko nintzen ulertzen mundua ez zela ulertzeko egina, hitza ez zela *zergatik?* soil batera **errenditzeko** egina, gezurra egia izateko asmatu zela, eta gure biziko tuneletan zergatik eta zertarako sartzen garen aztarrenik gabe sartzen garela. Iñaki Segurola

Ilargia azkenean tabako-sailetarantz **errenditu** eta soroen gaineko gandu heze esne-itxurako hura atertu zuenean, orduantxe lokartu ni; ez luzarorako, ordea. Joxe Austin Arrieta

Fabulaziorako alaitasunaren eta irudimen biziaren uztarketa liluragarriak **errenditu** zuen Stevensonengana. Juan Garzia

5 (era burutua izenondo gisa)

Sobera uko egina zion ordurako amodioaren gozoari eta maitale **errendituari**. Patxi Zubizarreta

6 erabat nekatu, leher egin.

Errendituta nengoen eta lo premian: nekeagatik, egun osoko emozioen eraginez, edan eta erretako guztiagatik, etorkizunari buruzko oldozpen ilunak nerabiltzala buruan. Anjel Lertxundi

Azkenean, goizaldera, irudi horiekin **errenditu** nintzaion loari, eta berriro esnatu nintzenean, aireportura abiatzeko ordua nuen. Ramon Saizarbitoria

Batez ere, erabat ziur nengoelako luzaro gabe bidaliko nion testuaren bidez nire maitasunari erabat **errendituko** zitzaiola. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errendi dadila (3)

---

errenditze *iz* etsaiaren aurrean amore ematea, aurre egiteari uztea, borrokan etsitzea.

Amore eman zien Dombrowskiren eskakizun itsusiei, eta **errenditze** horri esker bizitza berri baten aukera etorri zitzaion. Oskar Arana

Askatzeko seinalea zen; **errenditzearena**. Fernando Morillo

---

errendizio *(orobat **errendizione** g.er.) iz* erreditzea.

Minbizia ametitzen ikasi dut, ez dakit tolerantzia den edo **errendizioa** den. Joseba Sarrionandia

Horren ondorioz, Irkutsken setioa eta **errendizioa** denbora kontua besterik ez zen, eta denbora laburreko kontua beharbada. Karlos Zabala

Portugaldarrek uste izan zuten hiriaren **errendizioa** negoziatzera zihoazela Santoñatik urruti hasi ziren **errendizio** haren negoziaketak. Jon Alonso

Ziegetan preso ditudan zortzi beaumondarrak ere laxatu eginen ditiat, **errendizionea** neure eskuz sinatu ondoren. Joan Mari Irigoien

Hitlerrek bezala jokatu nuen, frantsesak menpean hartu eta haien **errendizioa** Versailleseko ituna sinatu zen bagoi berean sinatzera behartu zituenean. Karlos Zabala

Euskal Gobernuko iturrien arabera, Santoñako **errendizioan** atxilotuetako 321 hil egin zituzten, fusilatuta edo garrotean. Jokin Urain

Sainte-Marieren ustez «su-etena ez da **errendizio** bat», baizik eta «arma eraginkorrena». Berria - Euskal Herria

Ernest Hemingway kazetaria ez zen Parisen **errendizio** formalaren testigu izan. Edorta Jimenez

Hamabost mila soldaduk, azkenekoek, zikin eta dardarka, erabateko **errendizioa** eskatu behar izan zuten euren zuloetatik aterata. Rafa Egiguren

Egoera berriaz baliatzeko «irudimena» eskatzen die kazetak espainiarrei, eta «baldintzarik gabeko **errendizio**» eskaerak «samurtzeko» esaten dio PPri. Berria - Harian

IRA, zeinak aldaketarako egutegia zuen, ez zegoen **errendizio** eta derrota usaina zuten unionisten eskaeren aurrera makurtzeko prest. Berria - Mundua

Errendizio ituna errespetatuko dutela agindu zioten ofizial italiarrek, eta halako batean abiatu eta goizeko hamarrak hamar gutxitan iritsi ziren Baionara. Jokin Urain

---

errendizione ik **errendizio**.

---

errengura ik **arrangura**.

---

errenka[1] **1** *iz* errenkada, lerroa.

Gazteek bi **errenka** osatu dizkiote kale estuaren alde banatan. Anjel Lertxundi

Luteziarenganako amodioa Lakatosenganako gorrotoa adina hazten zitzaidan, nahiz eta nire amodio hura ez zen nik agertu nahi nuen bezain bizia, aski bigarren **errenkakoa** zen. Matías Múgica

2 ***errenkan*** bata bestearen atzean lerroan.

Gauzarik atrebituenak pasatu ziren **errenkan**: hiru lagun berriek aipamen bereziz gainditu zuten azterketa gisako bat izan zen hura. Josu Zabaleta

Kalesa geldiarazi zuen, **errenkan** zeuden mandagurdiak baino poxin bat lehentxeago, arrain-kaxa pila batzuen artean erdi ezkutaturik. Anjel Lertxundi

Auzipetuak elkarretaratu ziren bitartean, haien aurrean baina bizkarra emanez, **errenkan** jarri ziren Dignidad y Justicia elkarteko hamar lagun. Berria - Euskal Herria

Harrezkero, euskal autore zaharren edizio kritikoak **errenkan** etorri dira, bata bestearen atzetik: Etxeberri Ziburukoa, Tartas, Mendiburu, Eskuin aldean, berriz, **errenkan** jarritako aitorlekuetan, fraideak jendea konfesatzen. Berria - Kultura

Lehen [partida] biak **errenkan** jokatuko dira bi asteburuotan. Berria - Kirola

Supermerkatu edo postetxe bateko **errenkan** itxura antipatiko eta zakarreko hirurogei urte inguruko edozein emakume. Joseba Urteaga

Hainbat berlina, orga eta lando zeuden atari aurrean, bata bestearen atzetik **errenkan** eta ilargitan zilartsu. Anjel Lertxundi

Haratago, **errenkan**, batzuk elkar gainka, auto zaharrak, pneumatikoak, tuboeskapeak eta beste. Pablo Sastre

Hari begira zegoela, diz-diz egin zuen errekak; karra-karra, antzarak **errenkan**. Pablo Sastre

---

errenka[2] *adlag* erren eginaz.

14-8koarekin Beloki aldageletara joan zen, eta **errenka** bukatu zuen partida. Berria - Kirola

Errenka eta hanka lotuta ere, taldekideak laguntzeko gai izan zen jokalari kroaziarra. Berria - Kirola

Erremolatxa-aurpegiko gizon sendokote bat **errenka** zebilen tabernan zehar, makila batean bermatuta. Lopez de Arana

Halako batean, inor horretaz ohartu baino lehen, nagusia **errenka** heldu zuan eta, burua galdu gabe, errebolberra kendu zioan eta poltsikoan sartu zian. Lopez de Arana

Oroimena ez baitzebilen gauzak bete-betean iraultzen, ohi duen legez, eta ohitura etenda, **errenka** bezala eskatzen zuen falta zitzaion hura. Imanol Unzurrunzaga

Zaldun-ezkutariei laguntzera etortzeko agindu zien dukeak bere ehiztariei; aski hondatua zegoen Don Kijote erorka hartatik, jaso zutenean; baina, hala ere, jaun biengana joan zen belauniko jartzera, **errenka** eta ahal zuen bezala. Patxi Ezkiaga

---

errenkada *(orobat **errenkara** g.er. eta **errenkeda** g.er.)* **1** *iz* lerroa.

Hiribide beti-berdina gora eta gora hedatzen zen, bere zuhaitz handien lerroak, bere etxe apalen **errenkadak** erakutsiz. Karlos Zabala

Dendaren fatxadan jarritako kale argien **errenkadaren** azpian. Karlos Zabala

Mahasti ia hutsezko **errenkaden** artean. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gurpilen ilara luzeak, gurdiei loturiko abereen **errenkada** amaigabeak galtzen ziren kargatzen ari ziren salgaien nahas-mahasaren erdian. Karlos Zabala

Lehenbiziko **errenkadan**, Arles eta Lyongo saltxitxoi hasiak zeuden, eta, haien ondoan, uretan egositako txerriki gazituaren puskak eta mingainak. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bide lokaztuan, mahatsondo **errenkada** desordenatuen artean. Josu Zabaleta

Atzealdeko apaletan, meloi **errenkada** luzeak zeuden, garatxoz josiriko kantalupo motakoak, farfaila grisez horniturikо baratzeko meloiak. Karlos Zabala

Gorago, zenbakidun tiradera **errenkada** batean, ogi arraspatuak, fina eta larria, ogiztatzeko ogi mamia, intxaur muskatua, iltzea, piperbeltzak eta beste espeziak paraturik zeuden lerro-lerro. goian, hiru apal **errenkadetan**, oiloak eta untxiak ageri ziren kaiola zapal batzuen barruan Karlos Zabala

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Lehenbizi, behe-behean, beiraren kontra, rillette poto **errenkada** bat zegoen, ziape potoekin tartekatua. Karlos Zabala

4 ***errenkadan*** bata bestearen atzean lerroan.

Bide lokaztuan, mahatsondo **errenkada** desordenatuen artean. Josu Zabaleta

Saski luzexkoak eta otzara motzak **errenkadan** jarrita zeuden, oihalez edo lastoz estalirik. Karlos Zabala

Beste guztiak barrez ari ziren, **errenkadan**, zubi gainean. Josu Zabaleta

Txapela lau aldiz **errenkaran** jantzi duen bertsolaria gabe abiatuko da datorren igandean, Leitzan, Nafarroako 33. Berria - Kultura

Hortik aurrera Altunak askoz hobeto probestu zituen zituen aukerak, bost tanto egin zituen **errenkedan** eta arazorik gabe iritsi zen 30ra. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ditu errenkadan (5); **du errenkadan** (6); **egin zituen errenkadan** (3); **errenkada bat** (6); **errenkada luze** (3); **errenkadan egin** (13); **errenkadan egin zituen** (6); **errenkadan egin zituzten** (3); **errenkadan eta** (6); **errenkadan irabazi** (4); **errenkadan jarrita** (4); **errenkadan lortzen** (3); **errenkaden artean** (4); **eta errenkadan** (3); **lortu zituen errenkadan** (4); **lortu zuen errenkadan** (3); **partida errenkadan** (8); **partidak errenkadan** (3); **tanto errenkadan** (3); **tanto errenkadan egin** (3); **tantoak errenkadan** (6); **tantoak errenkadan egin** (4); **urtez errenkadan** (3); **zituen errenkadan** (13); **zituzten errenkadan** (3); **zuen errenkadan** (6)

---

errenkara ik **errenkada**.

---

errenkarnatu, errenkarna(tu), errenkarnatzen da/du *ad* berraragitu.

Budismoan edo beste edozertan sinesten hasiko zinen, baina soilik garatxoak ziren **errenkarnatzen** zirenak. Harkaitz Cano

Bera zen fisonomista nardagarri hura despistatu eta zelatatzen zuen emakume horren baitan **errenkarnatzea** posible izatea desiratzen zuen Cesar Telleriak. Harkaitz Cano

---

errenkarnazio *iz* berraragitzea.

mendi buelta bat egitera joaten banaiz, zakurren batek jarraituko dit atzetik, aurreko bizitzan edo oraingoan izandako jaberen baten antza dudalako (zakurrak maiz **errenkarnazioak** izaten dira). Joxean Agirre

Ez diat **errenkarnazioan** sinesten, ez zegok harri bat utzi eta, erosoagoa zaiolako, apaiz baten buru hutsera sartzen den arima erraririk... Harkaitz Cano

---

errenkeda ik **errenkada**.

---

errenkura ik **arrangura**.

---

erreno *iz* elur-oreina *(Rangifer tarandus).*

-Ez haserre... Txarra nire errusiera... Ez ikasi... Tuntra, tuntra... **Errenoa** ... Lana... Gutxi hitz egin... Pablo Sastre

---

errensuge ik **herensuge**.

---

errenta *iz* ondasun edo kapital batek epe jakin batean ematen duen mozkina; pertsona edo kideko batek epe jakin batean dituen diru sarrerak, lanarenak ez direnak; alokairu edo kideko batengatik ordaintzen den diru kopurua.

Jokoa ez da **errenta**. Joxerra Garzia

Merkatuek ez dituztela, nahitaez, **errenta** eta ondasunak zuzentasunez banatzen. Iñaki Heras

Arabarrak eta bizkaitarrak atzo hasi ziren **errenta** eta ondarea aitortzen. Berria - Ekonomia

-Sentitzen dut, Joanes: ni banoa eta zu esku hutsik utziko zaitut, ez etxerik ez **errentarik**. Joan Mari Irigoien

Ez dugu hala ere egungo egunean ikusten hiruretan hogei milako **errenta** duen andereñorik erlijioan sartzen. Jon Muñoz

Erranen dut azkenean Gorte honetako jende gehienak miretsi dutela zer pazientziarekin eta zer bihotz zabalarekin onartu duen artzapezpikuak hainbeste ontasun eta **errenta** galtzea. Piarres Xarriton

Inolako ordainsaririk edo **errentarik** gabe. Askoren artean

John Deek, aita aberats baten oinordekoa izaki, bazuen amets goxo bat: **errentetatik** bakarrik bizi, eguneroko lapikoa bete ahal izateko lanean aritu beharrik ez izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erretegia saldu eta urtebetean **errentetatik** bizi izan zela egia izan zen. Karlos Zabala

Gizon on hura hil zenean, mila liberako **errenta** utzi zion. Karlos Zabala

Hezkuntza masibo eta ez elitista horrek eragin positiboa du **errenten** banaketan, eta, era horretan, kontsumoaren merkatu modernoan sarbidea duen erdi mailako klase zabal bat sortzea errazten du. Koro Navarro

Estatua ezin zaielarik klase menderatzaileei nagusitu eta erakunde sindikalak oso ahulak izaten direnez, oso motelak izaten dira **errenten** birbanaketarako eta gizarte-babesaren garapenerako ahalegin serioak. Koro Navarro

Etorkizun Kontratua: Bergizarteratzeko Gutxieneko **Errenta** edo gisa bereko sariak eskuratzen dituztenak lan bat aurkitzen laguntzeko pentsatu kontratua da. Berria - Harian

Beste batzuk, berriz, zuzenekoak dira, Elkarteen Irabazien gaineko Zerga edo Pertsona Fisikoen **Errentaren** gaineko Zerga (PFEZ), esaterako. Iñaki Heras

Batez ere, Ogasunari aitortzen zaizkion laneko **errenten** eta jarduera enpresarial, profesional eta artistikoen **errenten** arteko alde «susmagarria» dute jopuntuan gizarte eragileek. Berria - Ekonomia

Iruzurrak behera egin du eta igo egin da higiezinen **errentak** aitortzen dituztenen kopurua. Berria - Ekonomia

Errentaren gaineko zerga progresiboaren alde. Iñaki Heras

Gizarte justu bat izateko, **errenta** edo ongizatearen banaketaz gainera, mugikortasun sozialak ere zeresan handia du. Iñaki Heras

Zerga politikak eragin handia du, edo, hobe esanda, izan dezake, **errentaren** eta aberastasunaren birbanaketan. Iñaki Heras

Errentaren gaineko zergei ala konsumo-tasei lehentasuna eman. Iñaki Heras

1.200 milioi txinatar herritarrek izan duten **errentaren** hazkundearengatik. Iñaki Heras

Langileen eta klase ertainen **errentek** bere horretan jarraitu dute edo murriztu egin dira. Iñaki Heras

Estatu aberatsen per capita **errenta** pobreen bikoitza baitzen. Iñaki Heras

Hazkunde hori, **errentaren** mailaren mendeko baino areago, **errentaren** erabilera produktiboaren edo ez produktiboaren mendeko da. Koro Navarro

Aitzineko prioreek alabaina erreinuko jaun handien itxura hartua zuten eta haien bizimoldeak **errenta** guztiak irensten zituen. Piarres Xarriton

Nik ordaintzen dut etxe honetako **errenta**, eta joateko esaten dizut. Koro Navarro

Etxebizitzaren **errenta**, janaria, arroparen garbiketa, apeta txikiak, dena zegoen idatzia, jasoa, batuketa egina. Karlos Zabala

Hasieran, taxia aldi baterako konponbidea baino ez zen izan, **errenta** pagatu ahal izateko behin-behineko neurri bat beste zerbait aurkitu bitartean. Oskar Arana

Errentako etxe baten goiko bi solairuetan jarri ziren bizitzen Tomekin batera. Oskar Arana

Etxearen administratzailea duk, uda osoko **errenta** zor zioagu oraindik. Iñaki Iñurrieta

-Igual uste zian **errenta** kobratzera zetorkiola. Anton Garikano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Errenta finkoan prezioak gora eta errentabilitateak behera, Erreserba Federalak interes tasa baxu luzaroago mantenduko dituelakoan. Berria - Ekonomia

Iparraldeko herrialdeak **errenta** altuena duten herrialdeak dira, eta, era berean, gehien birziklatu eta gehien errausten dutenak dira.Frantziako Gobernuak iragarri du gaur hasiko den G8ren goi bileran egingo duen proposamenetako bat **errenta** ertaineko estatuen kanpo zorraren ordainketa «arintzea» izango dela, «erregimen berezi baten bidez». Berria - Euskal Herria

Kapitalaren **errenten** eta **errenta** handien gaineko zergen beheraldia. Koro Navarro

Estatu kide bakoitzak **errenta** gordinaren %1,24 ematen dio Europako Batasunari. Berria - Harian

1973-1974 urteetan, Yom Kippur-eko gerraren ondoren, eta 1979-1980 urteetan, Irango iraultzaren ondoren, petrolioaren prezioak izan zituen gorakada izugarrien ondorioz, **errenta** aski handia eratu zen herrialde petrolio-ekoizleetan. Horretarako, **errenta** errealen mailak -beste hitzetan esanda, erosahalmenen mailak- alderatu behar dira. Koro Navarro

Andre hori xume-xume bizi zen, **errenta** txiki bizi arteko batekin. Karlos Zabala

Labur esanda, oinarrizko **errenta** herritar orori, herritar izateagatik bermatzen zaion gutxieneko diru sarrera da. Iñaki Heras

Herritar guztiei estatuak ordainduriko oinarrizko **errenta** baldintzarik gabekoa. Iñaki Heras

Gobernuaren urteroko **errenta** bat jasotzeko aukera. Iñaki Heras

Munduko 225 pertsona aberatsenen ondarea 2.500 milioi pertsonen urteko **errenta** metatuaren parekoa da. Iñaki Heras

Biztanleko **errenten** nazioarteko konparazioa eginda Munduko Bankua, 1995, jarraitasuna baino areago, leize handi bat ageri da planetako parte garatuaren eta ez hain jendeztatuaren eta hirugarren munduko giza masa izugarriaren artean. Koro Navarro

Garapen-bideko ekonomien biztanleko **errenta**, batez beste, %2,5 urteko hazi zen 1966 eta 1997 bitartean, eta herrialde industrializatuetan berriz %2,3. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egun lanaldiaren murrizketaren inguruan bizi-bizirik dagoen eztabaida **errenta**-banaketaren ikuspegitik aztertzen denean soilik uler daiteke bere osotasunean. Iñaki Heras

Ez baitut zu **errenta**-biltzaile edota zergalari ikusi arte gelditzeko asmorik. Patxi Ezkiaga

Ezer eraiki aurretik ondo atera ditzan kontuak, egindako lanen inguruan ez dadin gero eztabaidarik sortu etxe-jabeen artean, eta bide batez, idatzitako legeen indarrez, **errenta**-hartzailearen eta kontratugilearen aurrean ondo babestua gera dadin. Santiago Iruretagoiena

Herrialde aberatsen eta herrialde pobreen arteko **errenta**-aldeak ez dira azken berrogei urteotan murriztu. Koro Navarro

BEZaren eta beste hainbat tasen kasuan, esaterako, gizabanako guztiek, **errenta** edo aberastasun maila oso desberdinak dituztela ere, berdin ordaintzen dute. Iñaki Heras

Zerga politika, diru politika, atzerri politika eta **errenta** politika (oinarrizko prezioen eta soldaten finkatzea). Iñaki Heras

James Packer kontulari erretiratua zen, baina oraindik ere egiten zizkien **errenta** aitorpenak lehengo zenbait bezerori. Koro Navarro

2003ko **errenta** kanpainan 257 milioi itzuliko ditu Gipuzkoak. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ideia honek edozein frogapenen aurretik eta azterketa guztien aurretik, hiru funts-**errenten** izaera naturala postulatzen zuen. Xabier Arregi

Giza garapena nazio **errentaren** hazkundea edo murrizketa baino zerbait gehiago ere bada. Iñaki Heras

Herrialde inportatzaileen nazio-**errentei** eragindako diru-hustea handiagoa edo txikiagoa izan zen mendekotasun energetikoaren mailaren arabera. Koro Navarro

Biztanle **errentako** eskalarekin erkaturik, ahalegina 23koa da EAEan, 29koa Nafarroan, 39koa Europan eta 57koa AEBetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gizarteratze **Errenta** Aktiboa 300 eurokoa izango da 10 hilabetez diru-baliabiderik ez dutenentzat. Berria - Euskal Herria

Gizakiaren ongizatea areagotzea, gizakiaren diru-**errenta** edo eskura duen produktu kopurua areagotzea dela asumitzen baitu. Iñaki Heras

Kapital **errenten** gaineko zerga tasak, gainera, lan **errenten** aldean oso behera egin dute. Iñaki Heras

1993an lan **errentak** BPGren %55,4koak izan ziren, eta 2001ean %49,8ra jaitsi zen. Iñaki Heras

5 irud/hed

Atsedenean hiru goleko **errenta** zuen Itxakok, eta 35, 40 eta 45 minutuetan bost goleko **errenta** ere izan zuten. Berria - Kirola

25 segundoko **errentarekin** igaro zen gainetik Gutierrez, baina jaitsieran alde horri eutsi egin zion, eta lasai jaso ahal izan zituen besoak garaile. Berria - Kirola

Helmugan, dena den, 19 segundokoa izan zen **errenta**, baina **errenta** baino, jarrera da garrantzitsuagoa. Berria - Kirola

Naranco mendatean gora erasoa jo, aurretik zituen denak irentsi, eta **errenta** erosoarekin helmugaratu zen, Euskaltel-Euskadi taldeari sasoiko bosgarren garaipena emateko. Berria - Kirola

Sarasuak lehen lau tantoetan eginiko hiru hutsek hasierako **errenta** eman zioten Altuna II.ri (6-2). Berria - Kirola

Gorriek aginduz ekin zioten partidari, eta erdi aldera **errenta** polita lortu zuten (31-20). Berria - Kirola

Iruindarrek oso ondo eutsi diote lehen zatian lorturiko gol **errentari**. Berria - Kirola

6 ***errentan*** alokairuan.

Errentan harturik neukan bi logelako apartamentu terrazadun bat. Oskar Arana

Gavardek bi konpartimentu hartuak zituen **errentan**, eta, erdiko trenkada kenduz, oilategi bakar bat egina zuen biekin. Karlos Zabala

Auto bat **errentan** hartu. Oskar Arana

Diru gizona zen, lukurrerua, txerpolariei maileguak egunka egiten zizkiena eta orgatilak **errentan** ematen, eskandaluzko korrituak eskatuz. Karlos Zabala

Gizon batek mahastia landatu zuen eta, nekazari batzuei **errentan** utzirik, urrutira joan zen aldi baterako. Elizen arteko biblia

Halako apartamentu arratoi-zulo gisako batean bizi nintzen **errentan** bi lagunekin. Oskar Arana

· Etxebizitza Sailak berak 400 etxebizitza ipiniko ditu aurten **errenta** merkean. Berria - Euskal Herria

7 ***per capita errenta*** herrialde bateko barne produktu gordinaren eta biztanle kopuruaren arteko erlazioa.

Alemaniaren **per capita errenta** 22.000 dolar inguruan zebilen 1997an. Edorta Jimenez

Per capita errenta hemen 6.520 dolarrekoa da; hazkundea, inguruko erresumen artean, hoberenetarikoa, 4, 8. Edorta Jimenez

Esloveniaren **per capita errenta** EBren batez bestekoaren %72ra iristen da, gutxi gorabehera, Greziak edota Portugalek dutena. Berria - Mundua

Hauteskundeak irabazi genituenetik, Euskadiko **per capita errenta** zazpi puntutan gehitu da. Berria - Euskal Herria

Herrialde aberatsenak dira igualitarioenak, alegia, aberastasuna hobeto banatzen dutenak: **per capita errenta** garaiena duten probintziak era berean igualitarioenak dira, ezen beren aberastasuna hobeto birbanatzen baitute. herrialde bat garapen bidean dagoela esaten da, kasu, 6.000 dolar **per capita errentatik** behera badago. Iñaki Heras

Estatu kide berriek EBko gainerako kideek baino garapen ekonomiko baxuagoa izan arren Barne Produktu Gordinean eta **per capita errentan** azalduak, azken urteotan EBko kide zahar garrantzitsuenen eta EB bera baino hazkunde tasa handiagoak izan dituzte. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurten errenta (3); **baina errenta** (4); **bateko errenta** (6); **batez besteko errenta** (4); **besteko errenta** (4); **bi goleko errenta** (4); **bizkaiko errenta** (3); **biztanleko errenta** (9); **biztanleko errenta erreala** (3); **bost minutuko errenta** (3); **capita errenta** (14); **da errenta** (14); **den errenta** (4); **dute errenta** (9); **dute errenta eta** (3); **edo errenta** (7); **errenta aitorpen** (4); **errenta aitorpena** (28); **errenta aitorpena egitean** (9); **errenta aitorpenak** (8); **errenta aitorpenaren** (9); **errenta aitorpenaren kanpaina** (3); **errenta aitorpenean** (5); **errenta aldakorra** (3); **errenta aldakorrak** (4); **errenta aldakorrean** (6); **errenta aldakorreko** (8); **errenta bat** (5); **errenta dute** (3); **errenta edo** (8); **errenta ere** (3); **errenta erreala** (5); **errenta ertaineko** (3); **errenta eta** (27); **errenta eta aberastasunaren** (4); **errenta eta ondarea** (5); **errenta finko** (3); **errenta finkoa** (3); **errenta finkoan** (3); **errenta finkoaren** (3); **errenta finkoko** (3); **errenta gordinaren** (4); **errenta handiagoa** (4); **errenta handiena** (4); **errenta hori** (4); **errenta horri** (3); **errenta izan** (3); **errenta jasotzen** (3); **errenta kanpaina** (9); **errenta kanpainaren** (3); **errenta kendu** (3); **errenta kitatzerakoan** (4); **errenta lortu** (16); **errenta lortu zuen** (4); **errenta lortu zuten** (7); **errenta lortzeko** (3); **errenta maila** (7); **errenta ordaintzeko** (4); **errenta osoaren** (3); **errenta per** (5); **errenta per capita** (4); **errenta polita** (7); **errenta polita lortu** (5); **errenta txiki** (4); **errenta zergaren** (4); **errenta zuen** (4); **errenta zuten** (4); **eta errenta** (36); **eta oinarrizko errenta** (4); **etxearen errenta** (3); **etxeko errenta** (3); **ez da errenta** (5); **goleko errenta** (12); **goleko errenta lortu** (3); **gure errenta** (3); **gutxieneko errenta** (6); **laurdeneko errenta** (3); **liberako errenta** (4); **lortu zuen errenta** (4); **lortutako errenta** (5); **mila liberako errenta** (3); **minutuko errenta** (14); **minutuko errenta lortu** (7); **oinarrizko errenta** (42); **oinarrizko errenta eta** (5); **ordu laurdeneko errenta** (3); **per capita errenta** (14); **segundoko errenta** (10); **zen errenta** (5); **zuen errenta** (7)

bat errentan (6); **bat errentan hartu** (3); **batez besteko errentaren** (3); **batzuei errentan** (3); **batzuei errentan utzirik** (3); **besteko errentaren** (3); **biztanleko errentaren** (3); **capita errentaren** (4); **errentak eta** (6); **errentan hartu** (8); **errentan hartutako** (6); **errentan utzirik** (3); **errentarekin helmugaratu** (4); **errentarekin helmugaratu zen** (4); **errentarekin iritsi** (5); **errentaren arabera** (3); **errentaren eta** (7); **errentaren eta aberastasunaren** (5); **errentaren gaineko** (31); **errentaren gaineko zerga** (7); **errentaren gaineko zergan** (4); **errentaren gaineko zergaren** (10); **errentaren kopurua** (3); **errentari esker** (4); **errentari eutsi** (3); **eta errentaren** (4); **eta errentari** (3); **fisikoen errentaren** (19); **fisikoen errentaren gaineko** (18); **goleko errentarekin** (3); **gutxieneko errentak** (3); **hartu zuen errentan** (3); **lan errentak** (3); **nekazari batzuei errentan** (3); **oinarrizko errentaren** (10); **oinarrizko errentari** (3); **per capita errentaren** (4); **pertsona fisikoen errentaren** (19); **segundoko errentarekin** (3); **zuen errentan** (4)

---

errentabilitate *iz* errentagarritasuna.

Errenta finkoan prezioak gora eta **errentabilitateak** behera, Erreserba Federalak interes tasa baxu luzaroago mantenduko dituelakoan. Berria - Ekonomia

Dopatuak dabiltzan kirolarien alde aitor nezake Europa aberatsean demagun, aktibitate ekonomiko dinamikorik ez litekeela, kitzika morala eta **errentabilitatearen** ezpatak hertsatu langilegoak zainak akuilatzen dituzten antidepresiboak ausarki eta deblauki klikatzen ez balitu. Berria - Kultura

---

errentabilizatu, errentabiliza, errentabilizatzen du *ad* errentagarri bihurtu.

Chadefaud ontzia urperatzen zihoaneko arratoi likitsa zen, eta hilotzez ase aurretik, gerla urteak herrokatzen, edozer saltzen eta komertzioa **errentabilizatzen** zituen. Itxaro Borda

---

errentadun *iz* bere ondasunen errentatik bizi dena.

XVI. mendeko prezioen gorakadak [...] azkenduko zuen **errentadunen** hondamena, merkataritza-klasearen onurarako. Koro Navarro

-Lehenik nobleak eta **errentadunak** jaukiko ditiagu, ondotik apezak eta, azkenik, herrietan berek nahi dutena inposatzen duten jauntxoak -azaldu zion Monduteguyk. Elena Touyarou

Burgesak ere baziren, auzo urrunetako **errentadunak**, goizeko lauretan arrain freskoa erostera etorri eta azkenean ia oharkabe izugarrizko sorta baten jabe egiten zirenak. Karlos Zabala

Kanpora noble, aberats eta **errentadunak**, zergarik pagatzen ez dutenak. ez ninduen harritu ikasle gazte, bulegari presatu eta zeregin handirik gabeko **errentadun** itxurako jende nahas-mahas haren barailak. Elena Touyarou

---

errentagarri 1 *izond* egin den inbertsioa konpentsatzen duen etekina ematen duena; errenta egokia ematen duena.

Denak enpresa **errentagarriak** dira. Berria - Ekonomia

Maileguz hartutako funtsak inbertsio-proiektu **errentagarrietan** erabili zirenean. Koro Navarro

8.600 milioi euro inbertitzera doa lau urtean, konpainiaren «hazkunde **errentagarria**» ziurtatzeko, hornikuntza sarea hobetzeko eta Kyotoko Ituna betetzeko. Berria - Ekonomia

Horrez gain, euskal zinemagintza **errentagarri** eta kalitateko baten aldeko apustua eta aldarria egin du. Berria - Kultura

Hainbat txosten egin zituzten eta bertan zerbitzu publiko **errentagarriak** aztertu zituzten. Berria - Euskal Herria

80ko hamarkadako rock ilunena eta erritmo dantzagarrienak berreskuratu eta eguneratu ditu Cycle talde espainiarrak *Weak on the rocks* lehenengo diskoan, eta promozio kanpaina **errentagarri** bati esker, modako talde bihurtu da zenbait zirkuitutan. Berria - Kultura

Negozio-bidaietan ez da oraino emakume kopuru aski **errentagarria** sartu. Edorta Jimenez

Itzultzaileen foroa, aldiz, elkarri laguntzeko erabiltzen da; askoz erabilera **errentagarriagoa** da hori. Berria - Kultura

Udalarentzat **errentagarria** omen da politikoki, baina gizarte ikuspegitik lotsagarria da. Berria - Euskal Herria

Funts horiek milaka eta milaka partaide txikiren ekarpenekin osaturikoak dira, aditu talde batek zuzendurik erosketa **errentagarrienak** non, hara egiten dutenak. Iñaki Heras

Aurrezkiaren mugikortasun gero eta handiago horrek inbertsio-proiektu **errentagarrienak** finantzatzen lagundu behar zuen printzipioz, haien norakoa kontuan izan gabe. Koro Navarro

Ontziola **«errentagarria** eta modernoa» da eta, Naval erosita, «hazten jarraitu» nahi du. Berria - Harian

Betidanik esan ohi da Espainiako Ligako atzerritar **errentagarrienak** zirela. Berria - Kirola

Ontziolen bideragarritasuna aztertzen ari den lan taldeak erabaki du bost ontziola ixtea, eta ekoizpena **errentagarrienetan** biltzea. Berria - Ekonomia

Adibide horrek oso argi ikusarazten du langile espezializatuen denbora osoko okupazioa ez dela **errentagarria** gertatzen, baldin salmenta kopuru jakin batetik gora ez bada. Koro Navarro

Kale-argi denak aldatzea garestia da, baina **errentagarria** da. Berria - Gaiak

Arabiarrak garbituz mundua salbatzen duten heroi amerikarren filmak oso **errentagarriak** baitira ekoizle judu zein kristauentzat. Berria - Kultura

Hondakinak behar bezala desegiteak diru asko balio du, eta horregatik, energia nuklearra ez da beste energiak bezain **errentagarria**, askoren ustez. Berria - Gaiak

Agintari sobietarrek **errentagarri** bihurtu nahi zituzten dolarretan zituzten erreserbak, baina Estatu Batuetako finantza-merkatuetan ipini gabe.Interes tasak txikiagoak izanik, enpresa proiektuak (esaterako produktu berri bat merkaturatzea edo beste ekoizpen planta bat irekitzea) eta inbertsioak, eskuarki, erlatiboki **errentagarriagoak** dira inbertsio finantzarioen aldean (%12ko errentagarritasuna izango duela aurreikusi zaion enpresa proiektua **errentagarriagoa** da erlatiboki, merkatuko interes tasa ofizialak %10ean izan ordez %6an baldin badaude). Koro Navarro

Etxebizitza bi batuz, bizitoki modukoak sortu zituzten orduan, zerbitzuak **errentagarri** egiteko. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Presio soziala jasotzen dutelako, eta irabazi-kostu kalkulua eginik "etika **errentagarria"** delako ezartzen dituzte etikarekin eta erantzukizun sozialarekin zerikusia duten

ekimenak. Iñaki Heras

Gaitzespen **errentagarrien** salerosketan aritzeagatik. Iñigo Aranbarri

Oso bistakoa izan zen hori Porto Allegreko Munduko Foro Sozialaren bileran, non aniztasunaren artean, besteak beste, hauteskunde garaian ziren hainbat politikarik **errentagarria** ikusi zuten bilkura horretan parte-hartzea. Iñaki Heras

Liburu horretan erreferentzia ugari jasotzen dira urkatzeko langintza ohoretsu eta **errentagarriari** buruz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Roig dirudunaren gutizia, jostailu **errentagarria** da Vila-real. Berria - Kirola

Haientzat ere akordioa **errentagarria** da, nonbait. Berria - Kirola

3 ***ez-errentagarri*** *izond* errentagarria ez dena.

Estatuen gastu korronteak (Nigeria), armamentu-gastuak (Irak), inbertsio **ez errentagarriak** (Aljeria) finantzatu zituztenean, edota kapitalen ihesa bultzatu zutenean (Argentina). Koro Navarro

Elkartzeak, zatiketak, sektore **ez-errentagarrien** salmenta, finantza-amarruak, eta, nola ez, emaitzak merkatu ahalguztidunek aurreikusi dituzten gisakoak direla bermatzeko itxuraldaketa finantzario baldarra. Iñaki Heras

Prozesu honek, tamalez, bazterrera uzten ditu leku **ez-errentagarri** guztiak, eta horiek ikusezin egiten ditu. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino errentagarriago (3); **da errentagarria** (9); **dela errentagarria** (8); **enpresa errentagarria** (3); **errentagarri bihurtu** (3); **errentagarria da** (10); **errentagarria dela** (7); **errentagarria delako** (3); **errentagarria eta** (5); **errentagarria ez** (4); **errentagarria izan** (9); **errentagarria izan daitekeela** (6); **errentagarria izango** (4); **errentagarria izateko** (7); **errentagarriagoa da** (3); **errentagarriak ez** (4); **errentagarriak ez diren** (4); **eta errentagarria** (3); **eta errentagarriak** (5); **etika errentagarria** (3); **ez da errentagarria** (9); **ez dela errentagarria** (8); **ontziola errentagarria** (4); **oso errentagarria** (4)

---

errentagarritasun 1 *iz* errentagarria denaren nolakotsuna.

%12ko **errentagarritasuna** izango duela aurreikusi zaion enpresa proiektua errentagarriagoa da erlatiboki, merkatuko interes tasa ofizialak %10ean izan ordez %6an baldin badaude; are gehiago, interesak %10ean baldin badaude, inor gutxik inbertituko luke %12ko **errentagarritasuna** eskainiko duela aurreikusten den negozio batean, negozio batek beti baitu, administrazioaren zorretan inbertitzearen aldean, esaterako, askoz arrisku handiagoa. Iñaki Heras

Jasotzen dituzten dirutzei **errentagarritasun** jakin bat ordainduz eta mailegatzen dituen dirutzei berriz, hura baino handiagoa eskatuz. Iñaki Heras

Terra ez zen ezer, Interneteko atari bat bai, sekulako kanpaina mediatikoarekin jaulki izan zen ataria, baina inolako **errentagarritasun** aurreikuspenik ez zuena. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalik eta errentagarritasun (3); **errentagarritasun ekonomikorik** (3); **errentagarritasun handiena** (5); **errentagarritasuna eta** (5); **errentagarritasuna handitzea** (3); **errentagarritasuna izango** (3); **eta errentagarritasun** (6); **eta errentagarritasun handiena** (3); **eta errentagarritasuna** (7)

---

errentamendu *iz* errentan ematea, alokatzea.

Jabeek eta errentariek dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematea, bisa ofiziala eta **errentamendu** kontratuen erregistratzea, bitartekaritza eta adiskidetzea bideratzea eta fidantzen bilketa kudeatzea, erregistratzea eta biltzea. Joseba Sarrionandia

---

errentari *iz* errentak dituen persona.

Jabeek eta **errentariek** dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematea. Halakoetan eskubide horien kobraketa uztarturik dago zuzenbidearen arazorik latzenekin eta zerga-biltzaileak edo zerga-**errentariak** eskura du, itun misteriotsu hori dela bide, botererik arriskutsuena. Joseba Sarrionandia

Léonce andreak ez zien bere **errentariaren** etxebizitzara igotzen utzi nahi. Karlos Zabala

---

errentatu, errenta(tu), errentatzen du *ad* errentan eman; errentan hartu.

Berritze lanek hiru urte iraunen dute, jabeek hunkiko dituzten laguntzak handiagoak izanen dira gero prezio merkean **errentatuko** dituztela izenpetzen baldin badute. Herria

Argibide guztiak jaso ditut higiezinen agentziatik eta apartamentu bat **errentatuko** dut. Javi Cillero

Konradek piano bat **errentatu** zuen, baina ez zuen asko jotzen, musikaren beldur balitz bezala. Xabier Olarra

Hoteleko gela erreserbatuta daukat, baita autoa **errentatua** ere. Javi Cillero

80 egoitza berexi dituzte **errentatuak** eta beste 20 jabeek berek okupatzen dituztenak. Herria

---

errentatxo *iz adkor* errenta xumea.

Baina, harro punttu bat sentitu nuen, eguraldi jolasak, **errentatxoa** eman zezakeela pentsatzean. Pello Zabala

---

errentatzaile *iz* errentatzen duen pertsona.

Haren heriotzak ez zuen gehiegi atsekabetzen, goizago edo beranduago gertatu beharrekoa baitzen, baina inork ez zuen Londresko **errentatzaile** zikoitz bat lekuko izaterik merezi. Lutxo Egia

Hantxe aurkitu dik **errentatzaileak**. Lutxo Egia

---

errentazale *iz* errentzailea.

Errentazale arrunt bat ergelago iruditzen baitzait ero hura baino. Josu Zabaleta

---

errenteriar *iz* Errenteriakoa, Errenteriari dagokiona; Errenteriako herritarra.

Hego-Ameriketan ari zen **errenteriar** pilotari batek, 1887-an hain xuxen, asmatu zuelarik barne handixagoa zuen xixtera, zezta puntakoa preseski. Herria

Berriako kazetaria ere bada dantzari **errenteriarra**. Berria - Kultura

Atenasko Olinpiar Jokoetarako txartela lortuta, ametsa beteko luke ibiltari **errenteriarrak**. Berria - Kirola

Bizkaitarrak ez ezik, Mitxelena **errenteriarra** ere ondo jabetu zen bere ingurukoen setakeriaz. Koldo Zuazo

Mariasun Landa **errenteriarra** izan da aurten Espainiako sari nazionalaren irabazlea, haur eta gazte literaturaren sailan, "Krokodiloa ohe azpian" obrarekin. Herria

45 urteko **errenteriarra** nazioarteko atxilotze agindu batean oinarriturik atxilotu zuten herenegun goizean. Berria - Euskal Herria

Errenteriarra zen Xenpelar, eta Oiartzun aldeko **errenteriarra**. Koldo Zuazo

Bizkaitarrak ez ezik, Mitxelena **errenteriarra** ere ondo jabetu zen bere ingurukoen setakeriaz. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ibiltari errenteriarra (3); **ibiltari errenteriarrak** (4); **urteko errenteriarra** (3)

---

errentista *iz* bere jabegoen errentetarik bizi den pertsona.

Litekeena da, egoera honetan, negozio handien eta **errentisten** interesek talde indartsua eratzea, eta gainera, aurkituko dute bai seguruenik egoera kaltegarria dela aitortzeko prest dagoen ekonomilari bat baino gehiago. Iñaki Heras

Probintziako hiri ziztrin bateko burgesia txiki-ertainaren erretratua eskainiko digu: idazle frustratuak, trenbide-konpainiako funtzionarioak, latineko irakasle mozkortiak, bigarren edo hirugarren mailako antzerki-konpainietako aktore eta zuzendariak, epaileak eta **errentistak**; Vajkaytarren ibilera ezdeusen bitartez Sarszeg-ko unibertso gris ia osoa erakusten digu Kosztolányik. Berria - Kultura

---

errenuntzia *iz* uko egitea.

Errenuntziari hartu berria nion afiziorako oso mugaz heldu zitzaidan bikote hark ematen zidan sufrimendua. Matías Múgica

Errenuntzia noble debot hura askoz jasoagoa iruditu zitzaidan orduan ordu arte bizitzen nintzeneko noblezia mailegatua baino, nire amodioa bera baino. Matías Múgica

Hori ere ez da, ez da, bizitza ukoen, galeren eta **errenuntzien** batuketa etengabe bat baizik ez denez. Jon Alonso

Ezpainak tink hetsita, **errenuntzia** seinale. Pablo Sastre

---

erreolde *iz* jendetza

«Gudukariek, giza-**erreoldek** eta bisitariek utziko dute mausoleoa eta honen ateak itxiak izango dira» azaldu zuen Al Sadren eledunak. Berria - Mundua

---

erreologia *iz* fisikaren adarra, materiaren deformazioa eta jarioa aztertzen duena.

Polimeroen prozesu fisiko-kimikoak, bertako disoluzioen ezaugarri elektrikoak, fluidoen mekanika, **erreologia** eta beste prozesu asko. Berria - Gaiak

---

erreontzitxo *iz* mineralak-eta erretzeko ontzi txikia.

Minerala, fin-fin xehetua, portzelanazko **erreontzitxo** batean paratu, hura kuartzozko hodi batean, eta hodian, kanpotik beroturik, hidrogeno-korronte bat iraganarazi genuen. kuartzozko hoditik **erreontzitxoa** atera, huspean hozten utzi, eta gero uretan barreiatu nuen hauts birrina. Juan Garzia

---

erreparagai *iz* aztergaia, ikusgaia dena.

Hegazti ttiki nahiz handiak, kukua bezala enara xiolariak, eltxo nahiz euli-mandoak, tximeletak eta matxinsaltoak... zer ez **erreparagai**? Pello Zabala

---

erreparagarri *izond* aztergarria.

Mitoak mito, aspaldi ez dela Ostielako lagunek euskaraz paratu zuten *Aitorren legenda* **erreparagarriagoa** izango da agian, guztiarekin ni, ezagutu nuen denboran ezagutu nuelako edo. Pablo Sastre

---

erreparaka *adlag* erreparatzen, zerbaiti adi. ik **erreparan**.

Alboko apalategietan zeuden pote ugarien errotuluei **erreparaka** ari zen Santos, irakurriko balitu moduan. Josu Landa

---

erreparakuntza *iz ipar* erreparatzea, konpontzea.

Erakaskuntzan: 744 000 euro ezarriko ditu departamenduak Kanboko kolegioaren berritzeko goitik behera; bestalde **erreparakuntzak** burutuko ditu Angeluko "Endarra", Hazparneko "Elhuyar" eta Bidaxungo kolegioetan. Herria

Lantegia oro bat gelditu dute behar diren **erreparakuntzak** egin arte. Herria

OPHLM egituran ez dute zorrik, alderantziz baztertuak badituzte 28 milioi Euro, eta horretaz aparte, badituzte **erreparakuntza** larriei buru egiteko zazpi milioi Euro bankuan emanak. Herria

Interesgarriagoa ere frangotan, ofizialeak ardura lanez itoak izanki, ez baitira aise joaten **erreparakuntza** ttipien egitera. Herria

---

erreparale *izond* erreparatzen, ikusten duena.

Laneko orduetatik kanpora ere, mendian dabilenean edo itsasoari begira dagoenean, bere begi **erreparalea** beti aire-haize-hezedura-eguzki-euri eta gainerako meteoroen peskizan edo euren jolasgura nola antzemango ibiliko da. Pello Zabala

---

erreparan *adlag* erreparatzen, zerbaiti adi. ik **erreparaka**.

Rodinen pentsalariaren jarreran zegoen ia, aulkian eserita, ukondoa izter gainean eta eskua kokospean buruari eutsiz, tapizaren bilbe-irazkien askotarikoari, koloreen anitzari **erreparan**, aurrealdean zuen tapiz zatian xehetasunen bat argitu nahi balu bezala. Iñaki Iñurrieta

Neskaren begien higitze ia atzemanezinei **erreparan**, haietan jakin-mina sumatuz zihoan, jakin-mina eta alaitasun sekretu bat betiere dantzan. Iñaki Iñurrieta

Klara aurrera begira zihoan denbora guztian, han nonbait zegoen puntu bati **erreparan** bezala. Iñaki Iñurrieta

---

errepararazi, errepararaz, errepararazten dio *ad* erreparatzera behartu, ohartarazi, ikusarazi, konturarazi.

Twirl-ek, azkar bezain argia bera, **errepararazi** zigun filosofia mailako arazo baten aurrean jartzen gintuela Biltzarrak. Juan Garzia

Liberal espainolek, liberalak omen diren arren, usteonik batere ez dute herrian, Álvarez Junco-k **errepararazi** legez. Joxe Azurmendi

Minbera eta suminkor bihurtu zuten, eta lehen aintzat hartzen ez zituen huskeria guztiei **errepararazi** zioten. Jose Morales

Musugorri hari, ordea, seriotasun astuna zerion, jendeari harridura eta inoiz traba sortzen ziona, zeren eta bere egonezin axalekoetan **errepararazten** baitzion norberari. Jon Muñoz

Freddy Malinsek [...] esku-keinu batez errefusatu zuen, ezinegonez, eskaintza, baina Browne jaunak, lehenik Freddy Malinsi janzkia desordenaturik zeukala **errepararazirik**, baso bat limonada goraino bete eta eman zion. Irene Aldasoro

Ez zitzaion inola ere gehiegi pentsarazi edo **errepararazi** behar errealitate desatseginez, bera hiltzeko aukeraz, besteen oinazeaz. Monika Etxebarria

Kontsonante talde haiek zekarten berritasunak, arroztasunak (ez baitzeuden euskararen barne-sisteman) hiztun hartzaileen entzumena zorroztu bide zuen, kontsonante bien artean zegoen bokaltasunari **errepararazteraino**. Lourdes Oñederra

---

erreparatu, errepara(tu), erreparatzen *(orobat **erreperatu** g.er.)* **1** dio *ad* zerbaitez ohartu, konturatu.

Aurrean duen zuhaitz lerroari **erreparatu** dio, eta gero enborrari atxikia den goroldioari eta goitik datorren huntzari, eta, batez ere, dilindan diren adar eta zurtoin idorrei. Pello Lizarralde

Geroago, diskrezio handiagoz eta laburrago, gizonaren aurpegiari **erreparatu** nion. Bernardo Atxaga

Harryri **erreparatu** zion, artean lurrean eserita baitzegoen. Iñaki Mendiguren

Ez zion, antza, **erreparatu** ere egin jaun xahar janzkera onekoari. Matías Mujika

Realak, hala ere, bere buruari **erreparatu** nahi dio, azkenaldian joera nabarmena baitago kazetarien aldetik errudunak kanpoan bilatzeko. Berria - Kirola

Bere buruari **erreparatzeko** beste ispilu batzuk eman dizkio Nunca Maisek Galiziari. Berria - Kultura

Poltsikoan zeraman arkatzari **erreparatu** zion; eskaladan punta izorratu ote zitzaion konprobatu nahi zuen. Unai Elorriaga

"Ze polita den melokotoi horien kolorea!", hotsegin zuen Adanek ordu arte sekula **erreparatu** gabeko zuhaitz bati begira. Bernardo Atxaga

Erreparatu dio sarrailari zure agenteak? Alberto Ladron Arana

Ikusmirari **erreparatzen** hasi nintzen, eta izurdeen jauziekin gozatzen. Bernardo Atxaga

Hizkuntzaren inguruko kontuetan ere badu interesik Triestek, eta kontu horiei ere **erreparatzeko** asmoa du Lertxundik. Berria - Kultura

Errepara, esaterako, lehen osagaiaren azken bokal kenketaren egitekoari. Lourdes Oñederra

Luisek ia barre egin du, baina zure imintzio tristeari **erreparatu** dionean, irribarrea izoztu egin zaio erdibidean. Lourdes Oñederra

Bere pentsamenduetan galdua, Ruche jaunak ez zien **erreparatu** bigarren orriaren eskuinaldean erantsita zeuden bi oharrei. Jon Muñoz

Ia ez nion **erreparatu** ere egin hildako gizonaren argazkiari. Jon Muñoz

Gauza bati **erreparatu** izan diot maiz: jende fededunak irri egiteko duen manerari. Patziku Perurena

Lurzoruaren eta azalaren keruari **erreparatzen** zioten, ea umeltasunik nonbaitetik antzematen zen edo ez. Pello Zabala

Lana nahi duenak sektore edo alorrari **erreparatu** behar dio, eta ez hainbeste tituluaren mailari. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Erreparatzen badiogu, bada, kontzeptuaren eboluzioari, hasteko izpiritua *(Geist)*, honezkero arima bihurtu da *(Seele)*, eta azkenean arraza beste gabe bihurtuko da. Joxe Azurmendi

Motorra aztertzeari ekin nion, gero oihan erdian matxurarik gerta ez zekigun, eta astirik ere ez nik dantzaldi edo dena delako hari **erreparatzeko**, landroverraren azpian bainengoen. Joxe Austin Arrieta

Are gehiago goibeldu zen nagusiaren aurpegierari **erreparatu** zionean. Patxi Zubizarreta

Bikoteari begiratu nionean, neskaren azal morenoari, kaobazko adatsari baino ez nion **erreparatu**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dakit besteek nire maniobrari **erreparatu** ote zioten. Edorta Jimenez

Nahas-mahas hartan, inork ez zien **erreparatu**, jantziak busti-bustiak eraman arren. Karlos Zabala

Ni inbidiatan egoten nintzaion begira, lo arinekoa bainaiz goizetan, bere aurpegi nasaiari edo gorputz biluziari **erreparatuz**, udako beroarekin ohea deseginik genuenean bereziki. Joxean Agirre

Esatea erraza da, egitea ezinezkoa, ia, batez ere eibartarren azken asteetako bilakaerari **erreparatuz** gero. Berria - Kirola

Orduan **erreparatu** ahal izan zion da Ruak itsuaren aurpegiari. Felipe Juaristi

Hamaika susmo gaizto etorri zaizkit burura bat-batean, lehenagoko portaera bitxiei **erreparatu** ahala. Jon Arretxe

Eraikuntza bat aztertzen dugunean ere ez diogu alderdi bakar bati **erreparatu** behar. Imanol Unzurrunzaga

Begiei segundo batzuk geroago **erreparatu** die, eta segidan eskuari. Pello Lizarralde

Errepara diezaiogun baina, ekimenaren aldeko ikuspegian sakonduz, ustezko arazo teknikoen aldeari. Iñaki Heras

Haren ahaleginei **erreparaturik**, laguntzera etorri zitzaion Max. Jon Muñoz

Itxurari **erreparaturik**, asmo oneko gizona ematen zuen, eta, gainera, haren solasetan ezerk ez zuen erakusten odol gaiztoko gizon zakarra zenik. Jose Morales

Ezin nien, ordea, haien akrobaziei **erreparatu**. Anjel Lertxundi

Mintzo ezkutuenaren bila abiatzen zara: eta hor bai, hor garai bakoitzari, sasoi eta une orori, naturaren zuhaitz eta biztanle guztiei, egun eta gau bakoitzari, eguzki-ilargien joera eta gorabehera orori, bere horretan, sanoenean **erreparatzen** diozu. Pello Zabala

Lehen begi-kolpean **erreparatu** diot, ezinbestean. Mirentxu Larrañaga

Zeri **erreparatzen** diok? Josu Landa

Inoiz ez zaizu gustatu zapatak garbiegi eramatea, iruditzen zaizu mundu guztiak zure oinei **erreparatuko** diela. Sonia Gonzalez

Nire mugimendu guztiei **erreparatu** zien. Xabier Olarra

Hala gertatzen ahal izan zen, baina ez zen hala gertatu, gizon hauek hil ziren, eta euren heriotza halabeharrez gertatu zen, orduan ere halabeharrezko gauzak gertatzen ziren, gehiegi **erreparatzen** ez zitzaien arren. Jon Alonso

Errepara iezaiok heuk. Juan Luis Zabala

Gure asaba haiek soroan lanean, adibidez, aitzurra lurrean sartzean, lurzoruaren eta azalaren keruari **erreparatzen** zioten, ea umeltasunik nonbaitetik antzematen zen edo ez. Pello Zabala

Aspaldian ikusi gabeko zerbaiti **erreparatuko** balio bezala. Joxean Agirre

Oraindik askozaz begi-bistakoagoa den zerbaiti **erreparatu** behar diogu, nahiz eta ez izan historikoki konstatataturiko ebidentzia. Piarres Xarriton

-Kontuz ahotsarekin, laztana, zure ahulezietako bat izan arren, ez diozu **erreparatzen**. Patxi Zubizarreta

Manuel Lekuonak txikitan Oihartzunen kantatzen omen zituen kantok esaten dutenari **erreparatzea** aski: [...]. Patziku Perurena

Inork ez gintuen deitzen, ordea, eta gizonari arretaz **erreparatzeari** lotu nintzaion, semearekikoak apur bat ahaztuz. Karlos Linazasoro

Hiruko ezpata bota zuen Otalorak kartei asko **erreparatu** gabe, bera zen esku. Koldo Izagirre

Banekien ordea ez zegoela lo, begiak irekitzen ikusi bainuen, zabal eta zurrun, soslaiez **erreparatu** nionean. Koro Navarro

Ekonomia ahalguztidunaren kontzeptu, gai edo arazo bakoitzaren alde desberdinei **erreparatzea** da gure helburua; alegia, modu zaharrean esateko, txanponaren leon-kastilloari **erreparatzea**. Iñaki Heras

Tejedorrek itzalak ere **erreparatu** dizkio aurtengo kosterari. Berria - Ekonomia

Ondorioz, ez dakite zein gogorra den ama izatea, edo ez diote horri **erreparatzen**. Berria - Gaiak

Zifrei **erreparatuz**, 40.000 pertsona baino gehiago hil dira orain arte Kaxmirreko lurretan. Berria - Mundua

Italiako Enel taldeari **erreparatu** besterik ez zaio egin behar horretaz jabetzeko. Berria - Ekonomia

Robert Guediguianen *Mon père est un ingénieur* lanari ere **erreparatuko** beharko zaio. Berria - Kultura

Poztu egin zinen Abiadura Eztiak halako gauzei **erreparatzeko** ematen zizun aukera apartarekin. Hasier Etxeberria

Egiten diren milaka analisiei **erreparatuta**, berriz, dopina ez dago zeharo hedatuta, positiboen kopurua %0,1 baino txikiagoa delako. Berria - Kirola

2000tik gaur arteko datuei **erreparatuta**, Reizabalek bete-betean asmatu du. Berria - Euskal Herria

Ikusi, jakina, **erreparatzen** baldin badaki izango da. Pello Zabala

· - **Erreparatu** nola egiten dudan. Fernando Rey

'Barkatu, berandu ibili naiz.' esanen diozu, begiak zabaldu dituela **erreparatzean**. Joseba Sarrionandia

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Herrialdeka **erreparatuta**, Gipuzkoa da herrialderik zaleena, eta Araba gutxiena. Berria - Kultura

Horrela eserita eta dantzariei begira, arazoari hotz-hotzean **erreparatu** eta ezinezkoa iruditzen zaizu elkartze-molde hori gizajendearengan. Joxe Austin Arrieta

Baina behin **erreparatu** nire lagunaren begitarteari, eta sinetsita geratu nintzen haren egiazkotasunaz. Koro Navarro

Damu dinat arreta zuhurragoz ez **erreparatu** izana. Juan Garzia

3 (du ad)

Ohe gainean utzi zenuen arropan **erreparatu** duzu. Sonia Gonzalez

Manuelek erlojuan **erreparatu** zuen. Unai Iturriaga

Ikusten dituen euli guzietan **erreparatzen** du, baina, ez du bere euli buruzuririk inon topatzen. Patziku Perurena

Errepara dezagun abizenetan. Iñigo Aranbarri

Bat-batean, eztarria trabatuta neukala **erreparatu** nuen. Txillardegi

Hor esertzen da, zerorrek **erreparatu** izan duzun bezala. Txillardegi

Irakurle abisatuak bakarrik **erreparatuko** zuen, bat-batean Ortega-ren terminologia nola aldatzen den izkribuan. Joxe Azurmendi

Eta gelan dugun argitze lausoarekin gerraondo paisaia **erreparatu** eta barreka hasi gara, eta musuka. Joseba Sarrionandia

Lehenengo zabaldu nuenean, hitzok **erreparatu** nituen: [...]. Josu Zabaleta

4 (da ad)

Erreparatu zen Aman eta ikusi zuen hala zela, Mardokeo ez zitzaiola ez belaunikatzen ez ahuspezten, eta izugarri haserretu zen. Jose Antonio Mujika

Errepara zaitez ongi analogia horretan, eta oroit liburu honetan bertan mihuraz esandakoaz. Patziku Perurena

• **5** du *ad* konpondu.

Bere ofizioz altzarigilea, bazuen gustu handia zurezko gauza xaharren eta hondatuen **erreparatzeko** eta erreberritzeko. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arretaz erreparatu (4); **arropei erreparatu** (3); **asko erreparatu** (4); **aurpegiari erreparatu** (7); **aurpegiari erreparatu nion** (3); **bakarrik erreparatu** (5); **bakarrik erreparatu behar** (3); **batean erreparatu** (4); **bati erreparatu** (36); **bati erreparatu dio** (3); **bati erreparatu nion** (10); **bati erreparatu zion** (8); **batzuei erreparatu** (3); **begiei erreparatu** (3); **beregan erreparatu** (3); **berehala erreparatu** (9); **berehala erreparatu zion** (5); **denari erreparatu** (4); **deusi erreparatu** (3); **deusi erreparatu gabe** (3); **dio erreparatu** (3); **emaitzei erreparatu** (5); **ere erreparatu** (28); **ere erreparatu behar** (3); **ere erreparatu beharko** (3); **ere erreparatu zion** (6); **erlojuari erreparatu** (6)

erreparatu ahal (10); **erreparatu ahal izan** (7); **erreparatu barik** (6); **erreparatu behar** (52); **erreparatu behar da** (7); **erreparatu behar diegu** (3); **erreparatu behar diogu** (6); **erreparatu behar zaie** (3); **erreparatu behar zaio** (8); **erreparatu beharko** (10); **erreparatu beharra** (3); **erreparatu beharreko** (5); **erreparatu besterik** (14); **erreparatu besterik ez** (13); **erreparatu die** (10); **erreparatu diet** (4); **erreparatu diete** (5); **erreparatu dio** (36); **erreparatu dion** (3); **erreparatu diot** (13); **erreparatu diote** (6); **erreparatu diozu** (9); **erreparatu du** (8); **erreparatu dut** (13); **erreparatu egin** (3); **erreparatu ere** (29); **erreparatu ere egin** (12); **erreparatu ere egiten** (6); **erreparatu ere ez** (4); **erreparatu eta** (43); **erreparatu ez** (18); **erreparatu gabe** (90); **erreparatu gabeko** (4); **erreparatu genion** (5); **erreparatu izan** (13); **erreparatu izana** (3); **erreparatu nahi** (16); **erreparatu nahi izan** (7); **erreparatu nien** (15); **erreparatu nion** (65); **erreparatu nionean** (3); **erreparatu nituen** (3); **erreparatu nuen** (28); **erreparatu ondoren** (6); **erreparatu orduko** (3); **erreparatu ote** (5); **erreparatu zien** (25); **erreparatu zieten** (3); **erreparatu ziola** (4); **erreparatu zion** (108); **erreparatu zion eta** (3); **erreparatu zionean** (3); **erreparatu zioten** (17); **erreparatu zuen** (18)

eta erreparatu (11); **ez dio erreparatu** (3); **ez erreparatu** (3); **ez nion erreparatu** (4); **ez nuen erreparatu** (3); **ez zien erreparatu** (5); **ez zion erreparatu** (6); **ez zioten erreparatu** (3); **ezeri erreparatu** (6); **ezeri erreparatu gabe** (6); **ezertan erreparatu** (3); **formari erreparatu** (4); **gehiago erreparatu** (4); **gehiegi erreparatu** (5); **gehiegi erreparatu gabe** (3); **gertatzen denari erreparatu** (3); **gizonari erreparatu** (3); **hari erreparatu** (6); **harryri erreparatu** (3); **horri erreparatu** (7); **ia erreparatu** (3); **inguruari erreparatu** (6); **inork erreparatu** (5); **inork erreparatu ez** (3); **itxurari erreparatu** (4); **izenari erreparatu** (4); **lanari erreparatu** (3); **neukala erreparatu** (3); **neukala erreparatu nuen** (3); **nik erreparatu** (4); **nion erreparatu** (4); **niri erreparatu** (4); **nola erreparatu** (3); **nuela erreparatu** (3); **nuen erreparatu** (3); **ondorioei erreparatu** (4); **ongi erreparatu** (7); **orduan erreparatu** (7); **orduantxe erreparatu** (5); **zegoela erreparatu** (3); **zela erreparatu** (8); **zela erreparatu nuen** (4); **zerbaiti erreparatu** (4); **zeri erreparatu** (3); **zeruari erreparatu** (3); **zien erreparatu** (6); **zion erreparatu** (6); **zioten erreparatu** (3); **zitzaidala erreparatu** (4); **zitzaidala erreparatu nuen** (3); **zuela erreparatu** (4)

aldeari erreparatuz (3); **arretaz erreparatuz** (3); **beste aldeari erreparatuz** (3); **datuei erreparatuta** (7); **datuei erreparatuz** (4); **datuei erreparatuz gero** (3); **egoerari erreparatuta** (5); **emaitzari erreparatuta** (4); **emaitzei erreparatuta** (18); **emaitzei erreparatuz** (4); **emaitzei erreparatuz gero** (4); **ere erreparatuko** (5); **erreparatua zion** (3); **erreparatuko die** (3); **erreparatuko dio** (4); **erreparatuko diogu** (3); **erreparatuko diote** (3); **erreparatuko diozu** (3); **erreparatuko zion** (6); **erreparatuko zioten** (5); **erreparatuta ere** (3); **erreparatuz eta** (4); **erreparatuz gero** (102); **estatistikei erreparatuta** (3); **eta erreparatuz** (4); **horiei erreparatuta** (3); **horiei erreparatuz** (4); **horri erreparatuta** (9); **ibilbideari erreparatuta** (3); **ibilbideari erreparatuz** (4); **ibilbideari erreparatuz gero** (4); **itxurari erreparatuta** (3); **itxurari erreparatuz** (3); **izenburuari erreparatuta** (3); **lanei erreparatuz** (3); **lanei erreparatuz gero** (3); **moduari erreparatuta** (4); **ongi erreparatuz** (3); **ongi erreparatuz gero** (3); **planaren emaitzei erreparatuta** (3); **soilik erreparatuz** (3)

adi adi erreparatzen (3); **adi erreparatzen** (5); **arretaz erreparatzen** (6); **asko erreparatzen** (5); **batere erreparatzeko** (3); **batere erreparatzen** (4); **bati erreparatzeko** (3); **edertasunari erreparatzeko** (4); **ere erreparatzen** (4); **erreparatzea aski** (3); **erreparatzea besterik** (8); **erreparatzea besterik ez** (7); **erreparatzea da** (3); **erreparatzea eta** (3); **erreparatzea nahikoa** (6); **erreparatzeko aukera** (3); **erreparatzeko esan** (3); **erreparatzeko eskatu** (3); **erreparatzeko eta** (4); **erreparatzen al** (4); **erreparatzen ari** (3); **erreparatzen badiegu** (9); **erreparatzen badiogu** (28); **erreparatzen badiozu** (4); **erreparatzen baldin** (3); **erreparatzen die** (6); **erreparatzen diet** (4); **erreparatzen diete** (5); **erreparatzen dio** (17); **erreparatzen diogu** (5); **erreparatzen diola** (4); **erreparatzen dion** (4); **erreparatzen diot** (11); **erreparatzen diote** (7); **erreparatzen du** (4); **erreparatzen eta** (3); **erreparatzen ez** (8); **erreparatzen hasi** (7); **erreparatzen hasi nintzen** (3); **erreparatzen hasi zen** (3); **erreparatzen nien** (9); **erreparatzen nion** (9); **erreparatzen zien** (9); **erreparatzen zion** (11); **erreparatzen zioten** (6); **eta erreparatzea** (3); **ez erreparatzea** (6); **ez erreparatzeko** (5); **ezeri erreparatzeko** (3); **gehiago erreparatzen** (9); **gehiegi erreparatzen** (6); **horri erreparatzea** (3); **horri erreparatzen** (6); **ondo erreparatzeko** (3); **ongi erreparatzen** (5); **portaerari erreparatzen** (3); **zeri erreparatzen** (3)

---

erreparatze *iz* zerbaitez ohartzea, konturatzea.

Azken bi dozena urte hauetan asko aldatu da, [...] eguraldiarekiko gertuko begirada eta **erreparatze** hori. Pello Zabala

Susana Mujikak bota zuen nola, Galizia aldean, gazte ikasle batzuek, saiatu eta saiatu, azterketa eta ikastearen poderioz, arakatze eta **erreparatze** batzuen ondorioz, ilargiak baduela eraginik ile-moztea noiz egin eta ilea nola hazten den eta beste atera zutela. Pello Zabala

Eezin esan dezakegu "elurra zuria da nahitaez" perpausa egiazkoa denetz gure inguruari **erreparatze** hutsarekin. Askoren artean

Ikusten, orain, larunbat gauerdiko haizeen **erreparatze** derrigorrezko hori nondik eta noiztik datorren? Pello Zabala

---

erreparatzeke *adlag* erreparatu gabe.

Pozak zoratzear, jauzika joandako orein ttikiari eskerrak emateko aukerarik gabe eta bere biluztasunari **erreparatzeke**, haranetarantz abiatu zen maldan behera saltoka, arrapalada bizian. Xabier Mendiguren Elizegi

---

erreparazio *(orobat **erreparazione**)* **1** *iz* erreparatzea.

Egin digunagatik **erreparazioa** eskatu behar diogu Espainiako Estatuari. Berria - Euskal Herria

Gatazka gaindituko bada, «biktima guztien **erreparazioa** eta preso politiko guztien amnistia» beharrezkotzat du Aralarrek. Berria - Euskal Herria

Ingles poliziak berak, kendu bizia itzuli ez badio ere, alabainan, bere gisako **erreparazionea** egin dio zortzi egunen buruan, lore azauak eta ele on asko bederen eskainiz. Biktima guztien **erreparazio** sozialari bai esaten diogu. Herria

Desagerrarazi eta errepresaliatuen aldeko aitormen eta **erreparazio** moralari buruzko adierazpen instituzionalaren proposamena. Berria - Euskal Herria

Bada garaia egindako minari **erreparazio** historikoa egiteko. Herria

Euskal Herriari zor zaion **erreparazio** historikoa aztertu beharko da, estatuen zanpaketak eragindako ondorioak, 36-39 epealdiko gudak eragindako biktimak, 39-75 frankismoaldiak eragindako biktima eta ondorioak, edota 75-05 Espainiako sasi-demokraziak eragindakoak. Berria - Harian

Zaramagako gertaerak argituko dituzten zigor bideak zabaltzeko aukerak «eskasak» direla-eta, **«erreparazio** partziala» baino ez dela izango gogoratu zuen Olabarriak. Berria - Euskal Herria

2 konponketa.

Carmen-en ehorzketak egin dira Arbonan Ahetzeko eliza **erreparazionetan** izanez eta gorputza pausatua izan da Saran, bere familiako hil hobian. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erreparazio historikoa (3)

---

erreparazione ik **erreparazio**.

---

erreparo *(orobat **erreparu** g.er.)* **1** *iz* eragozpena, oztopoa, uzkurtasuna, kezka.

Juzkuak egiteko, ordea, arin askatzen dugu mihia; iritziari iritzia gehitzeko ez dugu ezagutzen **erreparorik**, beldurrik, lotsaririk. Karlos Linazasoro

Gero, duda bat, edo **erreparoa** nahi bada, edo oharra. Berria - Kultura

Nik **erreparoa** deituko nioken, lotsa baino. Anjel Lertxundi

Irudimen errari eta kaskarina, objektuaren bidean hainbeste traba eta **erreparo** aurkitzen duenean, aukera guztiak probatzera behartzen delarik, askoz ere estuago lotuko zaio gure berezko senaren jomuga den alde atseginenari, haren alde txar eta mingarriari baino. Juan Martin Elexpuru

Erreparoa ematen baitit jende helduaren aurrean erretzeak. Anjel Lertxundi

Lapurreta zelako ere ematen zion **erreparoa**. Anton Garikano

Ohe deseginaren gainean, ukitzeak ere **erreparoa** ematen duen prendaren bat edo beste ikus zitekeen. Joxean Agirre

«Jendeak, oro har, **erreparoa** dio telebistari», azaldu du Goikoetxeak. Berria - Kultura

Erreparoak jarri zizkiguten, oso mozkor geundelako eta baita mukizu batzuk ginelako ere. Anjel Lertxundi

Hari obeditzea zuen eginbidea, ez **erreparoak** jartzea. Xabier Olarra

Hoztu ez badu, aldiz, **erreparoak** jartzen: kontuz gero! Negua gero! alegia. Pello Zabala

-Ez da diskoteka bat, ez! -erantzun diot, bere **erreparoak** deuseztuz. Pako Aristi

Agurtzane Juanena donostiarrak, **erreparo** guztiak behingoz bazterrean laga ondoren, komisarian emakume batek jaso dezakeenaren berri ematen zuen. Hasier Etxeberria

Belaunburuak bistan, **erreparoak** gainditzen du. Arantxa Iturbe

Gizonak atseginez baina **erreparo** pixka batekin begiratzen omen zion [...] emakumearen gorputz biluzi eta zuriari. Joxean Agirre

“Eta edertasunak ez dio inori kalterik egiten, nik uste", esan zuen Dodovek, **erreparo** guztiak gaindituak zituela erakutsiz. Karlos Linazasoro

Bere helburua lortzeko, alta, uste baino **erreparo** gehiago aurkitu ditu. Berria - Mundua

Haren ustez, nahiz eta langileak behar adinako esperientziarik ez izan, zenbait enpresaburuk ez ei dute **erreparorik** edozein motatako lanak agintzeko. Berria - Ekonomia

Ez dugu inolako **erreparorik** horren erantzukizuna Rodriguez Zapatero presidenteari leporatzeko. Berria - Harian

Antoniok ez du **erreparorik** aitortzeko ez zuela espero Valladoliden deia. Berria - Kirola

Ez dugu **erreparorik** izan teoria bakoitzetik komeni zitzaiguntxoa hartu eta geure egiteko, dena delako hori bat-bateko bertsolaritzaren alderdiren bat argitzeko baliagarri zitzaigun neurrian. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hasieran, aparatu berria denez, beldurra ematen die, erabiltzeko **erreparoa** izaten dute. Berria - Euskal Herria

Lege frantsesak, baliabide bat gehiago baitu, ez du lekukoak izutzeko **erreparorik**. Iñaki Iñurrieta

Do ut des jokabidearen logika pitzadurarik gabea da bi-bien motorra eta inork ez dio **erreparorik** erakusten bihotz-zabaltasunetik deus gutxi duen sator-tratuari. Anjel Lertxundi

«Idolotzat» duenari inolako **erreparorik** gabe jokatzeko arriskua hartzen du Irujok. Berria - Kirola

Liburu horretan batere **erreparorik** gabe esaten zuen hizkuntzak "organismo naturalak" direla. Joxe Azurmendi

Jexuxi dagoeneko ahaztu zaio tresna horiek hor daudenik ere, eta batere **erreparorik** gabe ari da hizketan. Xabier Etxabe

Zine-klubera joaten zen eta **erreparorik** gabe azaltzen zituen bere ideiak. Berria - Kultura

Umore ederrean nintzen eta **erreparorik** gabe gozatzen nuen bizitzak eskaintzen zidan zoriona. Matías Múgica

Jendeak **erreparorik** gabe eta ozen egiten baitzituen ekarpenak, galderak eta kabalak. Anjel Lertxundi

Beldurrik izan behar ez zitzaiona izendatzeko **erreparoz** edo lotsaz zegoela zirudien. Anjel Lertxundi

Ukalondoetatik oratzen dit gero, suabe-suabe, **erreparoz**, kristal finekoa banintz bezala. Anjel Lertxundi

Haren gorputzak eta gerri lirainak, hain zuzen ere agureak aztoratu, eta **erreparoak** hutsean uzten zituztenek, begiak betetzen zizkioten. Patxi Zubizarreta

Ez gure aurrekoek meteoroez axolarik ez zutelako: beharko izan axola eta **erreparo**, baserrian inongo eta inoren abisurik gabe laborea errenditu behar zuenak! Pello Zabala

2 (izenondo ea izenlagunekin)

Bi **erreparo** larri egiten zaizkio penitentzia metodo gisa: [...]. Xabier Olarra

Kartzelak herritarren artean **erreparo** berezia sortu duela dio. Berria - Harian

Gogoan nuen aitak **erreparo** handia erakutsi zuela amona Erikak ni Kurtengana joateko aukera aipatu zuenean. Anjel Lertxundi

Ez nion neure buruari **erreparo** handirik jarri. egiaztatu ahal izan zuen goizean begi azpian zeukan pinporta hark behera bidean jarraitzen zuela, inongo **erreparo** anatomikorik gabe eta ilusio handiz. Karlos Linazasoro

Deseroso antzean ibiltzen da, beharbada susmatzen duelako ez nukeela inolako **erreparorik** edukiko bere gauzetan kuxkuxean aritzeko. Sonia Gonzalez

3 *ipar* lanerako jende egokia.

Horrelako unibertsitatearentzat ba ote da aski **erreparorik**, ikasle kopuru egokia, botere publikoen sustengu ekonomikoa besteak beste? Herria

Ez da erran behar denak osoki ongi doatzila, badira problema ttipi batzu, hala nola **erreparo** aldetik eskas bezala duten batzuek. Herria

4 ***erreparoan*** *adlag* erreparatzen, begiratzen.

Ez zuten haiek izar-loken **erreparoan** egoteko astirik. Pello Zabala

Beti **erreparoan**, eta beti errezeloan eguraldiarekiko. Pello Zabala

5 ***erreparoa eman***

Ohe deseginaren gainean, ukitzeak ere **erreparoa ematen** duen prendaren bat edo beste ikus zitekeen. Joxean Agirre

Lapurreta zelako ere **ematen** zion **erreparoa**, eta Seigarrenen arrazoiek dibertitu bai baina ez zioten aldatzen sentimendua. Anton Garikano

Osaba Basiliok 82 urte ditu, eta **erreparoa** ere **ematen** zidan galdera egiteak, adin horrekin heriotza gertuegi ikusten baita beste ezertan pentsatzeko, edo hala iruditzen zaigu gazteoi. Pako Aristi

Eguneroko hartan ez nuen sekula ezer idatzi, **erreparoa ematen** zidalako hain koaderno dotorea "garrantzirik gabeko zerekin" betetzeak. Tabako-paketearen mukulua sentitzen dut, baina ez naiz paketea ateratzera ausartzen, **erreparoa ematen** baitit jende helduaren aurrean erretzeak. Ana Urkiza

· -Halako adinean, aita plazarik plaza urteten ikusteak ez eutsuen **erreparo** apur bat **emoten**? Xabier Amuriza

Gure hezurretako muina gar bizi eta gure odoleko zainak suzko hari bihurtuak, oinaze sinesgaitzezko **erreparoak emanaraziz**; sekula gutxiagotu gabeko oinazea, Jaunaren hirak beti kitzikatua. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erreparo guztiak (5); **erreparo pixka** (3); **erreparoa ematen** (4); **eta erreparo** (6); **eta erreparoa** (4)

---

erreparoka *adlag* erreparoak jarriz.

Autoa neronek behar nuela esan nionean bakarrik hasi zitzaidan galdezka eta **erreparoka**. Hasier Etxeberria

---

errepartitu, erreparti(tu), errepartitzen du *ad* banatu.

Zortzi edo hamar mila enpleatu ezartzen dituzte postan, irakiar heiek berek **errepartitzeko** aberats-mundutik etorriko zaizkoen laguntzak, hor bi mila kamiun ariko direla janari garraio horietan 26 miliun irakiarren asetzeko: zerbitzu pribatuak bertzalde oraino. Horien denen lekuratzeak eta **errepartitzeak** ditu orai lanak emanen. Herria

---

erreparto *iz* banaketa, partiketa.

Esaterako, aukera ematen duten lanetan, bigarren **erreparto** bat eginez, ekoizpena aprobetxatuz eta sarreren prezioa merkatuz. Berria - Kultura

---

erreparu ik **erreparo**.

---

errepasa[1] *iz ipar* janaldia, otordua.

Berriki, arizan diren guziak bildu dira **errepasa** on baten inguruan, ikusteko zertan ziren konduak ere, eta bereziki hoinbeste egun eta oren horren xutik ezartzeko arizan-eta, goxo zitakela ondotik ere memento on baten elgarrekin iragaitea. Herria

---

errepasa[2] *iz ipar* abestiez eta kidekoez mintzatuz, errepasatzea. ik **errepetizione**.

Kantu **errepasak** ere izanen dira irail huntan aratseko 8ak eta erditan, 20an Itsasun, 27an Kanbon, bi egunen prestatzeko: urriaren 2ko Parropiaren elgarretaratzearendako eta urriaren 16eko konfirmazione eguneko. Herria

Oraino errana edo orhoitarazia zauku Lurdeko beila iraila hunen 26an izanen dela, formakuntza izanen dela gure fedearen hobetzeko, burasoen elgarretaratzea katiximarendako eta kantu **errepasak** izanen direla Kanbo, Luhuso eta Itsasun 4 astez. Herria

---

errepasatu, errapasa(tu), errepasatzen **1** du *ad* berrirakurri, berrikusi, berraztertu.

Agendan idatzi dudan zerrenda **errepasatu** dut. Iban Zaldua

Errepasatu ditut orain arteko idazkiak, eta *La Femelle du Requin* aldizkariko kideei emandako erantzunaren zati honekin egokitu naiz. Bernardo Atxaga

Bien bitartean Anselmok behin eta berriz **errepasatu** zuen dokumentazio hura guztia. Joxemari Iturralde

Idazmahaian ezarri zituen ukondoak, pentsati, ikasgaia **errepasatzen** ari den eskola-ume zintzo bat irudi, gutunean finkatu zuen begirada, eskuzko lerro bakan haietan. Xabier Olarra

Kontaduria koadernoa ireki zuen, zenbaki zerrendak hatz erakusleaz **errepasatzen** hasiz. Harkaitz Cano

Artean hiru aurkezleak beren paperak **errepasatzen** ari zirela aprobetxatuz, alboan nuen gizaseme gorraizetu samartzen hasiari bere estasi-une propialari buruz itaundu nion. Karlos Linazasoro

Aita Renteríak bistarekin **errepasatu** zituen inguruan, azken unearen zain, zeuzkan figurak. Juan Garzia

Egingo zizkidaten galderak asmatzen entretenituko nuen bidaia, Fokker eta Heinkel hegazkinen ezaugarriak **errepasatuko** nituen mentalki, kontzentratuta iritsiko nintzen Adlerhausera. Anjel Lertxundi

Estatistikak **errepasatzen** hasiz gero, 1984-1985 sasoira jo behar da antzeko zerbait aurkitzeko. Berria - Kirola

Irakasleek klaseetan azaldutakoa **errepasatuz** egiten nuen bidea, hausnarrean, eta ez nintzen ahaleginaz konturatu ere egiten; bazirudien bizikletak berak eramaten ninduela. Bernardo Atxaga

Urriaren 14ko gertakizunak **errepasatzean**, ikusten da egun honi, inondik ere, maldizio deabruzkoren bat egokitu izan zaiola. Pello Zabala

Mendean zehar gertaturikoak **errepasatzeko** aitzakia. Berria - Kultura

Beste nonbait ezkutatu ote nintekeen galdetu nion orduan neure buruari, eta nire ezagun guztien aurpegiak **errepasatu** nituen nire aukerak haien espresioan igarri nahiz. Bernardo Atxaga

Eguna **errepasatu** eta bere burua zoriondu du, sarritan kinka larrian ibili arren onik atera delako. Itziar Otegi

Hufflepuffekoak, hori kanarioz jantzita, multzo estu batean zeuden elkartuta, azken mementoan taktika **errepasatzeko**. Iñaki Mendiguren

Inoiz joana nintzen haren lantegitxora etxekoren baten oinetako-zoruak **errepasa** zitzan. Anjel Lertxundi

Errepasa dezagun otsailtxo firili-faraillero horren koxka guztien nondik norakoa. Pello Zabala

Elur mota edo klaseak, asko direla bertatik ikus daiteke bailara bakoitzean erabilitako elur-kontuak **errepasatzen** badira. Pello Zabala

Pazko-txartelak ziren beste buruhauste latzetakoak: dotrina **errepasatu** behar hura, jaunartzeko baimenik emango bazizuten! Pello Zabala

Barne Ministerioak eta Herrizaingo Sailak elkarlanean landu eta aztertu beharreko gai politiko eta operatibo nagusiak **errepasatu** dituzte. Berria - Euskal Herria

«Gure diskografia **errepasatzen** duen ibilbidea eskainiko dugu», aurreratu du Tapiak. Berria - Kultura

Alor horretan Joaquin Jordaren eta David Cronenbergen ibilbide zinematografikoak **errepasatuko** dira. Berria - Kultura

Buruan **errepasatu** nituen han hitz egin genuenean nik egindako salaketa lotsagabeak, berak haiek hartu zituen modua eta gainerako guztia. Xabier Olarra

Errepasatu egin behar da dena, arriskuan ipiniko gaituen, salatuko gaituen ezer, batez ere euskarazko ezer ez daramagula ziur egoteko. Joseba Sarrionandia

On Camillok San Joseren bizarra berun-hautsez **errepasatzeari** ekin zion. Koldo Biguri

Mahai gaineko loreak **errepasatzen** hasi zen, koilararen punta lore marrazkien ertzetik pasatuz. Joseba Sarrionandia

Bertako bat hartu eta **errepasatzeari** lotzen da; hameka aldiz errepikatu duen eginkizun bera, erreposki eta arreta automatiko batez. Jose Angel Irigaray

2 (adizlagunekin)

Habe hauen pintura zuria zen berria, aldika **errepasatua**; eta txartelak ateratzeko makina. Iñaki Zabaleta

Hau guztia egoki ulertzeko, komeni zaizu aurrena uztailak 11koan genioena, lanbro-lainoena, ongi **errepasatzea**. Pello Zabala

Litro kopuruetara etorriz, komeni baita hori ere zuzen **errepasatzea**, gogora dezagun honako bitxikeria hau. Pello Zabala

Dirua ematen nion amultsuki, nigana heltzeko oinez zegien bidea mentalki **errepasatuz** : [...]. Itxaro Borda

Goitik behera **errepasatu** nuen dena. Jesus Mari Mendizabal

3 petatxatu, adabatu, konpondu.

Inoiz joana nintzen haren lantegitxora etxekoren baten oinetako-zoruak **errepasa** zitzan. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errepasatu eta (9); **errepasatu nituen** (6); **errepasatu nuen** (4); **errepasatu ondoren** (4); **errepasatu zituen** (10); **errepasatu zuen** (7); **goitik behera errepasatu** (3); **guztia errepasatu** (3); **guztiak errepasatu** (5)

---

errepaso *(orobat **errepasu** g.er.)* **1** *iz* errepasatzea.

Batasunaren «mirarien» eta atzerri politikaren erronken **errepasoa**. Berria - Euskal Herria

Besteok ere, falta direnak, **errepaso** bat merezi dute. Pello Zabala

Eta, argazkiari so, amonak noiznahi egiten zidan **errepasoa**, jokalariak hatzaz seinalaturik: [...]. Joan Mari Irigoien

Eldarnio betean, **errepaso** egiten nien behin eta berriro azkeneko egunetan egondako tokiei, ahora eramandako jakiei, ukitutako gauzei. Anjel Lertxundi

Aurreko orduen **errepasoa** egiten jardun zuen bere baitan. Fernando Morillo

Kamioiari **errepaso** bat eman, eta Joxe Mariri eraman nion. Juan Kruz Igerabide

Beti da onuragarri, etxeko sabaiko itoginei **errepaso** bat ematea, teila berriren bat bere tokian kokatzea. Pello Zabala

Haren begirada lasai ari zitzaioan gelari **errepasoa** ematen. Xabier Olarra

Joko bat da bidezidorren **errepasoa** esaten diodan hori. Harkaitz Cano

Izan ginenaren **errepasoa** egin dut, baina nostalgiarik gabe, iraganari aurre egiterakoan nostalgia faltsua baita. Berria - Kultura

Banaka batzuek hik hiru hilabete luzeetan diktatu -bai, diktatu- dizkiean apunteak eskuetan zerabiltzatek, azken orduko **errepasoan**. Jokin Muñoz

Iazko ekitaldiaren **errepasoarekin** batera, urte honetarako asmo eta aurreikuspenak ere jakinarazi zituen Jesus Cataniak. Berria - Ekonomia

2 (izenlagunekin eta izenondoekin)

Orain arte idatzi ditudanen **errepaso** mentala eginez: ez dakit gogoratzen ari naizen ala ahanzten. Anjel Lertxundi

Interesgarria izan daiteke kasinoari loturiko espekulazioaren historia laburrari **errepaso** txiki bat ematea. Iñaki Heras

Errepaso zehatza ematen diot gauero gelako ordenari: [...]. Anjel Lertxundi

Errepaso orokor bat baino ez dugu egin. Joxe Azurmendi

Hitzontzia zen Anton, eta ordu eta erdi iraun zuen berriketan **errepaso** osoa eman zion bere bizitzari. Josetxo Azkona

Uste dut oro har istorio guztiak esan nahi nituela, zergatik gauden hemen **errepaso** luze hau egiten... Pako Aristi

Nire irakurketei buruzko **errepaso** labur honetan esan beharko nuke zerbait liburu debekatuez ere. Anjel Lertxundi

Bozak egin egingo direla berretsi zuen atzo urteko **errepasoa** egiteko emandako diskurtsoan: «Irak aurki demokrazia bat izango dela ziur naiz». Berria - Mundua

Azken **errepaso** honetan hiztegi eta gramatika-liburuak eskura izatea komeni da. Askoren artean

Uste dut oro har istorio guztiak esan nahi nituela, zergatik gauden hemen **errepaso** luze hau egiten. Pako Aristi

Eskaileretan behera, lagunen gorabeherei **errepaso** azkarra eman diegu. Xabier Etxabe

3 *adkor*

Osaba Tomasen mutilek **errepaso** galanta eman zieten liberalei. Martin Anso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errepaso bat (13); **errepaso bat eman** (4); **errepasoa egin** (19); **errepasoa egin eta** (4); **errepasoa egin zuen** (4); **errepasoa eginez** (3); **errepasoa egiteko** (3); **errepasoa egiten** (17); **errepasoa eman** (7); **errepasoa ematen** (5); **historiari errepasoa** (3); **ibilbideari errepasoa** (3)

---

errepasotxo *iz adkor* errepaso arina.

Horretarako egokiena, klimatologiari **errepasotxo** bat ematea. Pello Zabala

Begira, datu bilketak egindakoan, abantailatxo hori izaten da: noiztik behin **errepasotxo** bat emateko egokiera. Pello Zabala

Oraindik asti pixka bat banuenez, genealogia baten **errepasotxo** bat egin dut: Juan Zaharra, Guillermo Luis, Ernesto Kasimiro I.a, Enrike Kasimiro I.a, 1943an Ottawan jaio den Margarita Frantziskarenganaino. Josu Zabaleta

Eskarmenturako beti balio du pasatutako urte horiei **errepasotxo** bat noizik behin emateak. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errepasotxo bat (6)

---

errepasu ik **errepaso**.

---

errepausu *iz* atsedenaldia, pausaldia.

Errepausurik gabe euntsi ziren lanean eguerdi iria izan arte, baina bi saskiak bete zituzten txangurroz, txirlaz, tentuz, lapaz, itsasbarraskiloz bai eta ostra andana batez ere. Elena Touyarou

---

errepeinatu *izond adkor* arretaz orraztua.

-Kat, **errepeinatu** horrek gonbidatu nahi zaitu. Sonia Gonzalez

---

errepelente *izond* nardagarria, nazkagarria.

Pérez izatea ezin onartzetik euskal atso guziek nahiko luketen suhia izatera pasa den espezimen eredugarria, dioen guziari soltura faltsu, **errepelente** eta beratza kutsatzen diona. Patziku Perurena

---

errepentista *iz* literatura edo musika lan bat inprobisatzen duen pertsona.

Esaterako, Aitor Sarriegi beasaindarrak eta Unai Muñoa lasartearrak kubako **errepentistek** ohikoa duten segidillan egindakoa. Berria - Kultura

erreperatu ik **erreparatu**.

errepertorio 1 *iz* interprete, orkestra edo teatro talde edo kideko batek prestatuak dituen lanen multzoa.

Preobrajensyko eta Pavlowskyko errejimentuen musika bandak etengabe aritu ziren beren **errepertoriotik** hautatutako polka, mazurka, scottish eta baltsik ederrenak jo eta jo. Karlos Zabala

Hegalez hegal jesartzen ziren biak piano aurrean, eta erabiltzen zuten **errepertorioa** Mentxuren etxekotik oso besterakoa izaten zen: swing, charleston eta cha-cha-cha. Josu Landa

Esan beharra dago Raimundo Sarriegi dela danborradaren arima, sentimendu zibikoei arima eman zien gizona, Donostiari eman zizkiona, bere izen bereko patroiaren eguna ospatzeko himnorik hoberenak ez ezik, Inauterietako **errepertorio** guztia eman ziona. Askoren artean

Lakarko guduak gerrako kantuen **errepertorioa** aberastu baizik ez zuen egin. Koro Navarro

Tapiak 30/40 piezetako **errepertorioa** zeukan. Pako Aristi

Musika banda eta txistularien **errepertorioa**. Pako Aristi

Hitzak, nolabait esateko, gure **errepertorioko** melodiak dira. Isabel Arrigain

E z zuen antzokian entzuten diren izkirimirien **errepertorio** arrunt hori; halakoa zen haren hiztegia, herri-herrikoa. Josu Zabaleta

Gelatxok, baina batez ere Elgetak, kanturik behar ez zuten pieza asko erantsi zioten soinujolearen **errepertorioari**. Iñigo Aranbarri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gitarra jotzeko ahalmena ez galtzeaz gain, teknika berriak ikasiz eta Connierekin punteatuz, **errepertorio** musikala zabaldu zuen. Xabier Olarra

Ez dut, bada, piezaren beraren zailtasuna beste eragozpenik izaten **errepertorio** normal bateko piezak jotzeko orduan. Anjel Lertxundi

Jazinto Rivas izan baitzen, lekuko eta protagonista guztien aburuz, trikitilarien **errepertorio** urria berritu eta aberastu zuena. Koldo Izagirre

Errepertorio urriko trikitilari gaztea. Pako Aristi

Errepertorio motzeko soinujole kaxkar bat. Iñigo Aranbarri

Trikitilari tradizionalek jo ohi zituen tangoen, baltseen, pasadobleen eta ganerakoen **errepertorio** adierazgarri bat osotu eban. Xabier Amuriza

Gelatxo zaharrak aukerako **errepertorioa** zeukan, piezarik errepikatu gabe inor ez aspertzeko modukoa. Pako Aristi

3 irud/hed

Kanta haren antzezpenean jartzen zuen, antza, oso-osorik bere burua, are gorputz osoa, bere mugimendu eta adierazpenen **errepertorioa**. Xabier Olarra

Ez baita, haatik, bakarra Hamleteko Hamlet hori: askatu egin zen pertsonaia aspaldi testuaren mugetatik, eta mito unibertsalen **errepertorioan** du geroztik bizileku. Juan Garzia

Horrek guztiak komunikaziorako eta eszitaziorako **errepertorio** bikaina osatzen du. Luis Elberdin

Planeta guztian ez dago beste espezierik jolas sexualean hainbesteko **errepertoriorik** duenik; ezta hurrik eman ere. Luis Elberdin

Hizkuntz zeinuen materialtasuna agerian uzten duten prozedura guztien **errepertorioa** egitea ez dagokigu guri, baizik eta horietatik guztietatik zeintzuk hartu eta aztertuko ditugun adieraztea. Iñaki Arranz

4 (hitz elkartuetan)

Baina Ruth, zuk ez didazu sekula kontatu zer gertatu zitzaion iazko udan biran ibili zen **errepertorio**-konpainia hari. Lopez de Arana

· Egungo bertsolariak ez du formula-**errepertorio** itxi bat erabiltzen, ezinezkoa bailitzateke horrelako zerbait kontuan hartzen badugu landu beharreko gaien zerrenda beti zabalik dagoela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Azaldu nien nolako irrika nuen mimoarena egiteko, eta nolako pertsonaia-**errepertorioa** neukan. Fernando Rey

Animaliek jokabide **errepertorio** zabala eta askotarikoa dute, elkartze sexuala prestatuz joateko. Luis Elberdin

5 datu jakingarrien bilduma.

Gaur egun, **errepertorioak** ere Interneten bidez kontsulta daitezke. Askoren artean

Egia da badirela aldizkari elektroniko batzuk kalitatearen kontrolpean daudenak, baita bilaketa tresna batzuk ere guneak aztertzen dituztenak -kalitatea lortzea da horren helburua, jakina-, baina egia ere **Errepertorioen** artean filosofian erabiliena *Philosopher's Index* izenekoa da. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere errepertorio (3); **bere errepertorioa** (3); **errepertorio bat** (3); **errepertorio zabala** (7); **errepertorio zabala menderatzen** (3); **errepertorioa bere** (3); **errepertorioa osatzen** (3); **errepertorioa zeukan** (3); **eta errepertorio** (3); **euskal errepertorioa** (3)

errepesta *iz* festen segida.

Bixintxo **errepestak** bururatu dira igande (30a) honekin. Herria

Errepestak, helduden asteko 29an larunbata, eta 30an, igandearekin. Herria

errepetita *(orobat **errepettitta** eta **errepitita**) iz* txepetxa.

Hala diote **errepititaz** Dassance eta Elissalde jaun argiek "Euskal Herriko hegaztinak eta Choriak" izeneko liburu xoragarrian: [...]. Bi hitzetan esateko, honatx simetria sinbolikoa: erregetzaren arranoa, egun batez, buhame eskazaleen **errepetita** bihurtuko da. Patziku Perurena

Bena bena bena zer duzue **errepettitta** mehakoil hori? Itxaro Borda

Eta fla, fla, fla, guziak airatu ziren salbu **errepittitta**. Patziku Perurena

errepetitu, errepeti(tu), errepetitzen du *ad* errepikatu.

Ekonomian ez dago joaniko esperientziak **errepetitzerik**: 1936, 1944, 1958 behin bakarrik esistitu ziren -eta esistituko ere-: Historia ez dago ekonomistek beren ekuazioak noiz prest edukiko zain. Iñaki Heras

2

Janaria zerbait izugarri bilakatu zen, onuragarria on egiten bazion eta kaltegarria **errepetitzen** bazion. Joseba Urteaga

errepetizione *iz ipar* entsaioa. ik **errepasa**[1].

Eztei meza baten prestatzeko gisan, kantariek jakin dezatela, ortzirale arrats huntan, 20: 30tan, **errepetizione** edo errepika bat eginen dutela, Bastidako kantariekin, Aiherrako elizan. Herria

Errepetizionea bururatzean, ohi bezala Xabik hurrupaldia proposatzen du. Eneko Bidegain

Aurtengo berritasuna, Maite Haristoy Auxoteikoak, debruen laguntza edo eskukaldia ekartzen duela, musika edo orgina joile gisa, **errepetizioner** jarraikiz. Herria

errepettitta ik **errepetita**.

---

errepide *(orobat **errebide** eta **errapide** g.er.)* **1** *iz* bide zabala, automobil eta kidekoentzat prestatua.

Bidea bera **errepide** bilakatu da berriz, Azofra herrian sartu aitzin. Piarres Aintziart

Nafarroako Parlamentuko talde guztiek egin dute Pirinioez gaindiko hiru bideko **errepidearen** alde. Berria - Euskal Herria

Eraikin altuz, enpresa handiz eta bide askotako **errepidez** inguratuta dago Varsovia. Berria - Mundua

Zati honetan **errepideak**, norabide bakoitzean, bi errei izango ditu, eta azterketen arabera, egunero 20.500 ibilgailu inguru igaroko dira. Berria - Euskal Herria

Kintauko plazatik BAB-ko **errepidea** artinoko hiribidea. Herria

Horrela ulertu zuten jakintsu erromatarrek eta horrela amesten zuen berak alkatetza: ireki beharreko bideak, zolatu beharreko kale eta **errepideak**, hiriko garbiketa orokorra, arloteen polizia-zaintza, [...]. Bego Montorio

N-1 **errepidearen** saihesbidea egiteko asmoa du Lezo eta Gaintxurizketa bitartean Gipuzkoako Diputazioak. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Comptos Ganberak txosten bat kaleratu du Etxegarateko **errepidearen** bikoizketaren obren gastuaren gainean. Berria - Euskal Herria

Hiriarteko **errepideetako**, hau da, autobideetako, autobiako, **errepide** nazionaletako eta bigarren mailako **errepideetako** ertzetan autoak «banan-banan» zenbatu ditu Ertzaintzak. Berria - Ekonomia

Nekazarien erakundeko kideek [...] Pernambucon zortzi **errepide** blokeatu zituzten.Xendra batetik **errepideraino** jaitsita, Martin eta Bautista armada liberala kanpatua zegoen lekura iritsi ziren. Berria - Mundua

Gaztetandik nahi izan dut injineru izan, zubiak eta **errepideak** egitea gustatuko litzaidake niri. Hasier Etxeberria

Espaloiak zabaldu behar dituzte, eta **errepidea** estutu. Berria - Euskal Herria

Alemaniarren zerbitzura **errepideen** eraikuntzan aritutakoa zuen aitona. Berria - Kultura

Honek burura ekarri zidan txikitan ikasitako Espainiako geografia politikoa; bertan garbi azaltzen zen estatuko **errepideen** mapa erradiala zela, kamino guztiak Madrilen, zentroan, hasi eta bukatzen zirela. Berria - Euskal Herria

Errepidea zabaldu zutenean eraiki zuten hor burdinazko zubi ederra. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bidean, Tahoe aintzira eta Sakramento hiriaren artean nonbait, **errepidea** konpontzeko lanak. Joxerra Garzia

Kamioiek **errepide** hau maite dute eta ez da leku handirik geratzen bihurguneetan. Hasier Etxeberria

"Baso-bideetan" sei zaldiko gurdiak ibili ordez, macadam eta porlaneztaturiko bideetan automobilak ibiltzen ziren; burdinbideak **errepideekin** lehian ari ziren. Iñaki Mendiguren

Zornotza-Durango eta Zornotza-Gernika **errepideek** osatzen duten angeluak ere berebiziko garrantzia du kontakizunaren muinean. Berria - Kultura

Bridgeport-eko aldirietatik igarotzen ari ginela hartu zuen loak Lucy, I-95 **errepidean**. Oskar Arana

Villares de Orbigon, N. 120 **errepidea** hartu dut, Santibanez hutseginez. Piarres Aintziart

Errepidea utzirik, nekazariak esandako pista hartu dute bi ibiltariek. Anjel Lertxundi

New Haven-en, I-91 **errepidera** biratu genuen. Oskar Arana

Istripuaren ondorioz **errepidea** moztuta egon zen. Berria - Euskal Herria

N-1 **errepidea** norabide batean itxi egin behar izan zuten. Iñigo Aranbarri

Langileek Bilbotik Santurtzira doan BI-3739 **errepidea** moztu zuten Navalen sarreran. Berria - Ekonomia

Izenpedurek erakuts dezaten argi eta garbi jendeak ez duela 2X2 **errepiderik** nahi. Herria

Aragoiko **errepidean**, Torija eta Trijueque artean. Edorta Jimenez

Laranja Mekanikoak zaku batean sartu zuen zakurra eta bere autoko maleterora irauli ondoren, Astigarragako **errepidea** hartu zuen. Harkaitz Cano

Gizaseme mordoska bat jarri dik bestalde Irun-Behobiako **errepidean**, Gorrotxategi kapitainaren aginduetara; bi herri horietatik hurbil zitezkeen tropa liberalei bidea oztopatzeko. Txillardegi

Okindegiaren kamioi kirrinkariak ziztu bizian eraman gintuen Baionako **errepidetik**. Alberto Ladron Arana

Foruzaingoak eta Guardia Zibilak, Itoitzerako **errepideak** moztu eta prentsa handik bidali eta gero. Edurne Elizondo

Israelgo Armadak bitan banatu zuen Gazako eskualdea, Khan Junis eta Rafa hiriak lotzen dituen **errepidean** blokeoak ezarriz. Berria - Mundua

Egun hauetan Azkainerako **errepidean** Don Tirsok daukan "Chanienea" jauregi urdinska zabalean ostatatu duk isilpean Printze gaztea. Txillardegi

Errepidea armada liberalak hartua zuela ikustean, eta hiria setiatzen eta lubakiak erasotzen ari zirela, atzera egin omen zuen. Koro Navarro

Errepidea gurutzatu dutenean solasean hasi dira, elkarri begiratu gabe. Pello Lizarralde

Errepidea zeharkatu eta erreka aldera joaten ikusi ditu bi gizonak. Pello Lizarralde

Errepidea leporaino betea zegoen, gurdi, orga eta omnibusekin. Koro Navarro

Errepideak butxaturik egongo dira. Josu Zabaleta

Erreka eta **errepidearen** artean doan lurrezko bidexka mihi batez baliatzen naiz. Piarres Aintziart

Ohol-gazteluak eta enbor piloak ikusten genituen gure aurrean, errekaren eta **errepidearen** arteko sailetan ezarrita. Bernardo Atxaga

Hogeita Hamargarren **Errepidearen** bila ari gara; **errepide** hori zeharka-meharka doa diagonalean ipar mendebalderantz. Oskar Arana

Berrogei milia inguru egin ondoren, sigi-saga hasiko gara Rutlaland-era iritsi arte; gero, bilatu Zazpigarren **Errepidea**, eta jo hortik zuzen Burlington-era. Oskar Arana

Euforia batek gorputza sesitu dit eta beribilak ere **errepidearen** gorabeherak punpeka bezala irensten ditu. Piarres Aintziart

Errepidearen bazterrean Lambretta bat zegoen. Bernardo Atxaga

Egun ere **errepidez** eginen dut bidea. Piarres Aintziart

Azken bost kilometroak, **errepidez**, Gamonal auzunera heldu aitzin industrialde batean beharko baitut ibili. Piarres Aintziart

Berriro **errepidera** irtenda, lasterka igo genuen aldapa. Juan Kruz Igerabide

Ez **errepidera** atera, zioen esatariak, ez **errepidera** atera, behar den telefonoetan informatu gabe. Bernardo Atxaga

Animalia bat, ziur aski untxiren bat, **errepidera** irten zitzaigun arrapaladan pare-parera. Xabier Olarra

Haren gorputz sendokotearen balantzak jauzi txiki batzuk eginarazi zizkion lagunari espaloitik **errepidera** eta **errepidetik** espaloira. Irene Aldasoro

Errepidetik joan gintezkeela esan nahi zuen, gero, auzune berria eraikitzen ari ziren esparrutik, errekaren pareko bidea hartu eta bere etxeraino jarraitzeko. Bernardo Atxaga

Udan sekulako automobilak igarotzen dira **errepidetik**, eta gehien-gehienek geldialditxo bat egiten dute Urbiako Hotel Handia bihurturiko Ohando etxean. Koro Navarro

Hor berean, eskuin, **errepidetik** ehun bat metrora iturri xuri bat. Piarres Aintziart

Luhuson auto bat **errepidetik** atera zen eta bazterra jo zuen, Ortzaitzera bidean. Berria - Harian

Errepidea ezin ibilia zegoen elurra zela-eta, eta kotxea ez zen pasatzen. Koro Navarro

Kotxeak aurrera egin zuen **errepidean** barna, bere martxa astun eta beti-batekoarekin. Koro Navarro

- **Errepidean** behera, nora? Koro Navarro

Harryk ez zuen txintik esan **errepidean** aurrera zihoazen bitartean. Iñaki Mendiguren

Biko ilaran Don Arturo buru zutela **errepidean** aitzina ibaiertzetik betiko moduan, baina txolarreen zalaparta egun. Koldo Izagirre

Mila kilometrotik gora egin ditut bizikletaz Itsaso Beltzaren kostaldeko **errepideari** jarraituz. Jon Arretxe

Leonera bidaia bat egin, eta **errepideko** kontrol batean harrapatu ninduten. Josu Zabaleta

Errepideko taberna batean ospatutakoa bezain ezkontza patetiko batean. Berria - Kultura

Auto batek **errepideko** putzu baten gainetik igaro, eta frakak blaitzen dizkizunean. Patxi Zubizarreta

JANARIA ETA GASOLINA irakurri genuen **errepideko** seinaleetan. Oskar Arana

Errepideko erdibitzailea jo zuen aipatutako ibilgailuak. Iñigo Aranbarri

Esaldia bukatu ere gabe, ostiko bat eman zion Martinek agureak zeraman argiontziari, eta gero bultzada batez **errepideko** arroilara bota zuen zahar agurgarria. Koro Navarro

Irizar: **Errepideko** izar. Berria - Kultura

Joane Somarriba **errepideko** proban irten egingo da, osasunez zeharo osatuta ez badago ere. Berria - Kirola

Errepideko rallyek, karting probek eta autokrosek osatzen dute denboraldiko hitzorduen zerrenda. Berria - Kirola

Holandako **errepidekoan** nagusitu zen 1999an eta erlojupekoan iaz. Berria - Kirola

Horregatik eskatzen dute, urtero-urtero, **errepideetan** abiadura moteltzaileak ezar ditzaten. Berria - Euskal Herria

Sekula ez zuen atzerako martxa ibiltzen ikasi eta guztiz maniobra arriskutsua zela zioen, hain arriskutsua non **Errepideetako** Kodeak berak ere debekatzen duen 5 metrotik gorako distantzian! Bego Montorio

Errepideetako butxadurak, suteak, gaiak barreiaturik, hiriak birrindurik, nahasmendua... ikaragarrizko nahasmendua. Josu Zabaleta

Espainiako **Errepideetako** Lankidetza Enpresen Elkarteak (CEPAS) oroitarazi zuen «laster batean» hustuko dituztela bide bazterrak. Berria - Ekonomia

Autoak **errepide** erdiko hesia jo eta beste norabidean zetorren auto batek aurrez aurre egin zuen talka Urkizuren bi lagunen autoarekin. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Three Riverseko etxe sakabanatuak ikusten ziren zuhaitz izugarri handi batzuen babesean, eta Sequoia Parketik zetorren **errepide** nagusia Kaweah errekaren parean. Bernardo Atxaga

Ibaiaren beste aldetik jarraitu du, **errepide** nagusiaren parean doan lurrezko bide zabaletik. Pello Lizarralde

Mantes-la-Jolie-n irten, eta **errepide** nazionala hartu zuten, Vernonerantz. Jon Muñoz

Goiz-goizetik betetzen dira Pazko biharamuneko erromeriara doan jendez Casalerako **errepide** probintziala eta bideak. Josu Zabaleta

Lehenengo tartean **errepide** asfaltatutik ibili gara, gero porlanezko pistatik eta azkenean lurrezko pista lokaztutik. Jon Arretxe

Hona Casarsako lehenengo hormak, kedartuak, harrizkoak, **errepide** alkaternaztatuaren ondoan; hona Pordenone auzoa, bere etxaurre estu, zaharrekin. Josu Zabaleta

Lehen bost kilometroak, goizeko freskuran, **errepide** monotonoan eginik ere, aise eta lasai daramatzat. Piarres Aintziart

Errepide luze eta amaigabeen geografia patagonikoan. Berria - Kultura

Errepide gris eta zaratatsu bat pasako da laister auzoaren erdi-erditik. Berria - Euskal Herria

Gure autoa geldiro jaitsi zen Wewelsburg gazteluko **errepide** bihurrian behera. Alberto Ladron Arana

Bestalde txirrindulari ona, badaki Luzaideko **errepide** maldatsuen berri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Zerua ez da jausi, baina harri eta haitz ugari bai inguruko amildegietatik, **errepide** bihurgunetsuan trabak sortuz behin eta berriz gure autobusaren ibilerari. Jon Arretxe

Martinek eta Bautistak, **errepide** bakartietan sortzen den elkartasunezko sentimendu hori zela-eta, kotxera hurbildu nahi izan zuten eta gidariarekin hizketan jardun. Koro Navarro

Hartu dudan **errepide** xumea Indianoaren bidea deitzen da, ez dakit zergatik. Piarres Aintziart

Errepide leun eta urdinak herria inguratzen du, baina bide nagusia utzi dut, Ledigosen zigilua ukaiteko. Piarres Aintziart

Errepide meharraren albo banatatik bi figura atera dira. Pello Lizarralde

Errepide hertsi patartsu bat eta jarraian, eskuin, herriko hilerria. Piarres Aintziart

Portuan zegoen merkatontzi erraldoia bistatu zuen une batez, N-1 **errepidearen** eta trenbidearen bestaldean ainguraturik zegoena-. Harkaitz Cano

Gogoan zuen pistaren ordez, asfaltozko **errepide** txukun-estu batek lotzen ditu baserriak egun. Iban Zaldua

Epaitegira zeraman hiribide luzera heltzean, kontrako **errepidea** hartu, eta etxerantz abiatu zen. Aritz Gorrotxategi

75 pertsonak hiriarteko **errepideetan** galdu zuten bizia, eta 12k, berriz, hiriguneetan. Berria - Euskal Herria

Gero, eskualdeko **errepidean**, mando bat ikusi genuen gurdia atzean zuela; aurrerago, bizikleta bat eta balantzaka zihoan kamioneta. Bernardo Atxaga

Volvoak, argi keinukaria piztu gabe, bira egin zuen, bat-batean, bigarren mailako **errepide** batera. Aingeru Epaltza

Bigarren mailako **errepideetako** moteletan. Berria - Kultura

Baso arteko **errepide** batean aurrera gindoazen. Anjel Lertxundi

Trafiko urriko **errepidea** zen. Juan Luis Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zortzi tolesturatan bildu zuen **errepide**-mapa. Gure Rand McNally **errepide**-atlasa ireki eta Vermonten mapa aztertu nuen. Harkaitz Cano

Urriaren lehenean manifestaldi bat deitua baita Bidaxunen, 2X2 **errepide** proiektuaren salatzeko. Herria

Zazpi gune beltz ezabatuko dituzte Nafarroako **errepide** saretik. Berria - Euskal Herria

Martzilla-Azkoien **errepide** zatia. Berria - Euskal Herria

Ezustean harrapatu zuen erabat abiadura gutxiarazteko adierazten zuen **errepide** seinalearen ondoren, poliziaren furgoneta bat ikusteak, betazaletaraino abrigaturiko lau guardia zibil armatuk altoa ematen ziotela, beragandik hamar bat metrora, argi-foku ikaragarrien pean. Harkaitz Cano

Hartu autoa eta harantza lasai-lasai nindoala, halako batean bihurgune bat igaro, eta **errepide** babesgarria hautsirik ikusi nuen. Patxi Zubizarreta

Dena **errepide** kontrolez josi dute eta zenbait auzo etxez etxe ari dira eskuaretzen. Harkaitz Cano

Munduan 1,2 milioi lagun hiltzen dira urtean **errepide** istripuetan. Berria - Gaiak

Errepide ezbeharrek 520.000 milioi dolarreko gastuak eragiten dituzte munduan, urteko. Berria - Gaiak

Road movie-tan [...] azaltzen den **errepide** giroa lortzen duelako. Nire lagunak hasperen egin zuen **errepide** alboko herrixka bat seinalatuz. Berria - Kultura

Zozoturik behar zuten, gauez **errepide** erdira ateratzen den piztia bezala, edo aztoraturik. Pello Lizarralde

Gaur egun, **errepide** bazterrean, kurutze sinple bat, bost metro luzeko haga baten puntan itzaturik dago. Piarres Aintziart

-Mugarri bat zara -esan du-, **errepide** bazterreko mugarri bat. Monika Etxebarria

Gaurko garaiaren giroa ere ageri da, estekikoki ez baldin bada garbiki, bereziki **errepide** pankartetan. Piarres Aintziart

Gipuzkoako salgaien **errepide** bidezko garraioen hitzarmena sinatu dute Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bai, kapitain eta arrantzaleentzako ostatu bat, pasaerako hotel bat, halako Restop bat itsas **errepide** baten alboan. Bernardo Atxaga

5 ***Errepide Mapa*** negoziazio politiko baten ildoak azaltzen dituen dokumentua.

Errepide Mapa da bi aldeek onartzen dugun egitasmo politiko bakarra. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arteko errepide (14); **arteko errepide zatia** (5); **baina errepide** (4); **beharreko errepide** (4); **beharreko errepide mapa** (4); **bere errepide** (5); **bere errepide mapa** (4); **beste errepide** (13); **beste errepide bat** (4); **bi errepide** (5); **bigarren mailako errepide** (9); **bizkaiko errepide** (4); **da errepide** (12); **dagoen errepide** (5); **den errepide** (6); **dira errepide** (11); **diren errepide** (4); **dituen errepide** (6); **doan errepide** (4); **du errepide** (7); **duen errepide** (9); **edo errepide** (4); **ere errepide** (5); **errepide bat** (18); **errepide batean** (19); **errepide baten** (7); **errepide batetik** (8); **errepide batzuk** (5); **errepide bazter** (4); **errepide bazterrean** (44); **errepide bazterreko** (14); **errepide bazterretan** (20); **errepide berria** (4); **errepide berriak** (7); **errepide bihurrian** (4); **errepide egitasmoa** (4); **errepide erdian** (14); **errepide erdira** (10); **errepide ertzean** (18); **errepide ertzean lehergailuz** (4); **errepide ertzeko** (6); **errepide estu** (4); **errepide estua** (4); **errepide eta** (24); **errepide guztiak** (7); **errepide hau** (5); **errepide hori** (14); **errepide horrek** (5); **errepide horren** (6); **errepide horretan** (12); **errepide istripu** (6); **errepide istripuak** (6); **errepide istripuek** (6); **errepide istripuen** (4); **errepide istripuetan** (11); **errepide kontrol** (7); **errepide kontrol batean** (6); **errepide kontrolak** (6); **errepide mapa** (137); **errepide mapa bake** (19); **errepide mapa bat** (5); **errepide mapa eta** (6); **errepide mapa ez** (4); **errepide mapak** (6); **errepide mapan** (13); **errepide maparekin** (5); **errepide maparen** (19); **errepide mapari** (10); **errepide moztu** (4); **errepide nagusia** (25); **errepide nagusia utzi** (4); **errepide nagusiak** (13); **errepide nagusian** (18); **errepide nagusiaren** (5); **errepide nagusietan** (12); **errepide nagusitik** (5); **errepide ondoan** (7); **errepide ondoko** (11); **errepide probintzialaren** (4); **errepide sare** (18); **errepide sare nagusian** (10); **errepide sarea** (6); **errepide sarean** (6);

errepide sareko (8); **errepide xedea** (7); **errepide zabal** (6); **errepide zabal eta** (4); **errepide zabala** (5); **errepide zabalak** (4); **errepide zaharra** (4); **errepide zaharretik** (6); **errepide zati** (9); **errepide zati bat** (4); **errepide zatia** (9); **errepide zuzen** (4); **eta errepide** (75); **eta errepide mapa** (8); **euskal herriko errepide** (12); **ez da errepide** (4); **gaindiko errepide** (6); **hainbat errepide** (5); **herrialdeko errepide** (5); **herriko errepide** (13); **lotzen dituen errepide** (4); **mailako errepide** (9); **mailako errepide sarean** (4); **mendiko errepide** (4); **nafarroako errepide** (6); **nafarroaz gaindiko errepide** (5); **zen errepide** (13); **zenbait errepide** (4); **ziren errepide** (10); **zituzten errepide** (5); **zuen errepide** (8); **zuten errepide** (4)

a errepidea (4); **arteko errepidea** (7); **baina errepidea** (6); **baina errepideak** (4); **da errepidea** (6); **den errepidea** (5); **dira errepideak** (6); **dituen errepidea** (7); **doan errepidea** (11); **duen errepidea** (5); **egungo errepidea** (4); **errepidea berriz** (4); **errepidea bustita** (5); **errepidea egin** (4); **errepidea egiteko** (4); **errepidea ere** (7); **errepidea estua** (6); **errepidea estua da** (4); **errepidea eta** (13); **errepidea gurutzatu** (7); **errepidea gurutzatzen** (9); **errepidea gurutzatzen ari** (6); **errepidea hartu** (12); **errepidea itxi** (10); **errepidea itxi egin** (4); **errepidea itxita** (8); **errepidea moztu** (30); **errepidea moztu egin** (6); **errepidea moztu zuen** (4); **errepidea moztu zuten** (10); **errepidea utzi** (12); **errepidea utzi eta** (6); **errepidea zeharkatu** (5); **errepideak a** (4); **errepideak auto** (5); **errepideak bi** (26); **errepideak bi gazte** (4); **errepideak bi lagun** (6); **errepideak bi pertsona** (6); **errepideak bost** (5); **errepideak egiteko** (8); **errepideak egiten** (5); **errepideak emakume** (10); **errepideak emakume bat** (10); **errepideak ere** (4); **errepideak eta** (10); **errepideak ez** (4); **errepideak garbitzen** (4); **errepideak gizon** (9); **errepideak gizon bat** (8); **errepideak gora** (4); **errepideak hiru** (15); **errepideak hiru lagun** (9); **errepideak kamioi** (7); **errepideak lau** (7); **errepideak moztu** (11); **errepideak n** (5); **errepideak pertsona** (7); **errepideak pertsona bat** (7); **errepideak txirrindulari** (4); **errepideak txirrindulari bat** (4); **eta errepidea** (18); **eta errepideak** (16); **gaindiko errepidea** (5); **inguruko errepideak** (5); **istripuaren ondorioz errepidea** (5); **lotzen dituen errepidea** (6); **ondorioz errepidea** (5); **zegoen errepidea** (6); **zen errepidea** (7); **zuen errepidea** (5)

a errepidean (14); **a errepidearen** (4); **arteko errepidean** (25); **bat errepidean** (6); **berriro errepidean** (5); **da errepidean** (6); **dira errepidean** (4); **dituen errepidean** (13); **dituzte errepidean** (4); **doan errepidean** (9); **du errepidean** (5); **dute errepidean** (4); **ere errepidean** (5); **errepidean aurrera** (8); **errepidean barna** (6); **errepidean barrena** (5); **errepidean behera** (8); **errepidean bertan** (5); **errepidean bi** (4); **errepidean dago** (5); **errepidean ere** (7); **errepidean eta** (11); **errepidean gelditu** (4); **errepidean gertatu** (16); **errepidean gertatu zen** (13); **errepidean gertatutako** (10); **errepidean gertatutako istripu** (5); **errepidean gurutzatuta** (7); **errepidean izan** (8); **errepidean izandako** (9); **errepidean jarritako** (10); **errepidean zegoen** (5); **errepidean zehar** (5); **errepidearen alde** (7); **errepidearen artean** (4); **errepidearen beste** (17); **errepidearen beste aldean** (11); **errepidearen bi** (7); **errepidearen bi aldeetan** (5); **errepidearen bihurgune** (4); **errepidearen erdian** (9); **errepidearen eta** (5); **errepidearen kontra** (4); **errepidearen ondoan** (8); **errepideari begira** (4); **errepideari lotu** (4); **errepideaz bestaldeko** (5); **erronkari arteko errepidean** (4); **eta errepidean** (15); **eta errepidearen** (8); **hori errepidean** (4); **lotzen dituen errepidean** (11); **zen errepidean** (10); **ziren errepidean** (4); **ziren errepidearen** (4)

atzo errepideetan (5); **auto bat errepidetik** (22); **autoa errepidetik** (31); **autoa errepidetik atera** (18); **autoa errepidetik aterata** (4); **autoa errepidetik irten** (6); **autoak errepidetik** (7); **bat errepidetik** (31); **bat errepidetik atera** (22); **bat errepidetik irten** (7); **begiak errepidetik** (4); **bizkaiko errepideetan** (5); **da errepideetako** (4); **dira errepideetan** (9); **ditu errepideetan** (5); **doan errepidetik** (4); **eaeko errepideetan** (8); **erkidegoko errepideetan** (4); **errepideen egoera** (10); **errepideetako segurtasun** (4); **errepideetako segurtasuna** (7); **errepideetako trafikoa** (4); **errepideetan ere** (7); **errepideetan eta** (8); **errepideetan ez** (5); **errepideetan gertatutako** (7); **errepideetan hildakoen** (5); **errepideetan izan** (5); **errepideetan izandako** (7); **errepideetan izandako auto** (4); **errepideko bide** (4); **errepideko erdibitzailea** (4); **errepideko kontrol** (6); **errepidera atera** (13); **errepidera ematen** (4); **errepidera erori** (9); **errepidera irten** (6); **errepidera jaitsi** (4); **errepidetik atera** (66); **errepidetik atera eta** (25); **errepidetik atera zen** (28); **errepidetik aterata** (7); **errepidetik gertu** (4); **errepidetik hurbil** (4); **errepidetik irten** (25); **errepidetik irten eta** (8); **errepidetik irten zen** (10); **errepidetik kendu** (7); **eta errepideen** (8); **eta errepideetako** (4); **eta errepideetan** (11); **eta errepideko** (11); **eta errepidera** (8); **eta errepidetik** (9); **eta gipuzkoako errepideetan** (14); **euskal errepideetan** (7); **euskal herriko errepideetan** (34); **ez zen errepiderik** (4); **gipuzkoako errepideetan** (17); **herriko errepideetan** (35); **herriko errepideetan gertatutako** (4); **hil dira errepideetan** (4); **inguruko errepideetan** (4); **kamioia errepidetik** (4); **nafarroako errepideetan** (15); **zen errepiderik** (4); **zen errepidetik** (5); **ziren errepideetan** (6); **zuen errepidetik** (4)

---

errepidetxo *iz adkor* errepide txikia. ik **errepidexka**.

Rosatik aurrera, San Floreanorako errepidea hutsik zegoen erabat, bihurgunez betea: landetako **errepidetxo** bat, egun haietan hotzak zuri eta gogor bihurtzen zuena, hostorik gabeko basotxo artean, zanga ondoan ginda, elorri, eta alkazi adarrak pilatzen zirela. Josu Zabaleta

---

errepidexka *iz adkor* errepide txikia. ik **errepidetxo**.

Izan ere, bagindoazen gure bizikletak hartuta **errepidexka** batetik. Bernardo Atxaga

Igoak nituen ordurako, hasierako kale aldapatsua ez ezik, ehun bat harmaila, eta beste horrenbeste falta zitzaizkidan nire auzora jotzen zuen **errepidexkari** heltzeko. Bernardo Atxaga

---

errepidezain *iz* errepideak zaintzen dituen pertsona.

Errepidezain bat konbertitu dut, eta neu baino sutsuago hasi da: [...]. Josu Zabaleta

---

errepika 1 *iz* errepikatzea; errepikatzen den gauza.

Unibertsoaren zein musikaren funtsa **errepika** da. Markos Zapiain

Izkilek beren **errepika** berriz emaiten zuten "Tin, tan, tin tan tan tin, tin tan...". Michel Oronoz

Itoizen kanta famatu batek, hala jotzen du **errepika** Carlos Perezen ahotan: txantxangorria naiz, txantxangorria naiz... Patziku Perurena

Zenbaitek sakonagotzat ditu kaosa eta **errepika**, dialektika eta oharmena baino. Markos Zapiain

Errepika duzu alienatzailerik boteretsuena, eta inperioak, txiki edo handi, atsegin emanez bezala, sartzen dizu belarrizulotik oharkabean. Patziku Perurena

Florentziako Brancacci kaperan dauden Masaccioren eta Masolinoren freskoak, egin ohi diren haien **errepikak** baino askoz handiagoak dira. egunetik egunera originalak ez baina haien **errepikak** ikustera ohitzen gaituztelarik, sekulako kaltea egin digutela, eta artelanen aura sentitzeko, artelanak egiaz ikusteko ezgauza bihurtu gaituztela. Josu Zabaleta

Inazitoren eta beste guztien **errepika** bihurtu zen hura ere: [...]. hitzik ez dut aurkitzen ezta istant **errepika** ezin hartan bainu-bata eranzteko egin zuen mugimendua deskribatzeko ere. Joseba Sarrionandia

XIX. mendeko kritikariek ez bezala, haientzat argazkiaren automatikotasuna baitzen egiaz garrantzia zuena, **errepika**, seriea azpimarratzen zuen Benjaminek: [...]. Josu Zabaleta

· -Benetan -berak **errepika**-, min egiten didazu! Joxe Austin Arrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Danborraren **errepika** bizkorra. Josu Zabaleta

Rag-time zahar bat da, **errepika** kantatuarekin. Monika Etxebarria

Oro har bizian gertatzen den gisara, familietan ere -munduaren **errepika** tikia, azken batez- kide bakoitzak bere leku eta egiteko bereziak izaten ditu. Aingeru Epaltza

Zilarrezko tronpeten antzeko **errepika** argi eta sendoa entzun zuen. Agustin Otsoa

Errepikarik barrokoenak han hemenka kimatuz. Patziku Perurena

Iskanbilazkoa da **errepika** plazentaren bilatze hori, traketsa. Markos Zapiain

Argazkia izan zen lehenengo aurkitu zen irudi automatikoa; hasieran **errepika** optikoak egiteko teknika bat bezala hartu zen, eta neke handiak izan zituen irudi artistiko bezala har zedin. Josu Zabaleta

Mundua ez da gehiago izendatzen, munduak berak adierazten du bere burua, bere **errepika** soilez. Josu Zabaleta

Errepika tragiko hau du gai nagusi Bekatuaren itzala-k; baina, jenio handiz, bestelako **errepika** batez jarri dio kontrapuntua Mendigurenek. Markos Zapiain

Entzun egiten du haren **errepika** beti-bat eta motela. Patxi Zubizarreta

Ametsen artetik kanpaitxo baten bat-bateko **errepikak** erakarrita bezala, Frodo azkar jaiki zen, eta urrunera begiratu zuen, hegoalderantz. Agustin Otsoa

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizarteko **errepika** molde horizontalagoa, orainaldikoagoa, berriz, imitazioak ahalbidetzen du (modak eta). Markos Zapiain

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Palioak, seguru aski kanpai-**errepika**, baina ezin entzuna, Ama Birjina, mutiko kantariak, baina ezin entzunak. Joxe Austin Arrieta

Santu Guztienez, kanpai eta ezkila **errepikak** dirauten bitartean, fruitondoak lasto-korapiloz ornatzen dira, kanposantura lora-sortaz joan aurretik. Pello Zabala

Soinu hark ez zeukan hain zentzu atsegina, aitzitik, parte gaiztoko danbor **errepika** baten antzera bizitzaren neurria markatzen zuen gupidarik gabe. Anton Garikano

Goxo-goxo zihoan eta furgonetaren motor **errepikak** areagotu egiten zion istripu txiki hark sortutako sentsazio ederra. Unai Iturriaga

5 (adizlagun gisa)

Urrun, kanpaiak **errepika** ari ziren behean, eta gizon guztiak ihesean zihoazen Aragornen aurpegiaren aurrean. Agustin Otsoa

George's kaleko elizako kanpandorreko kanpaiak **errepika** eta **errepika** ari zen. Irene Aldasoro

Kanpaia nagusiarekin hasi zen **errepika**. Juan Garzia

6 soinu alaia eta errepikatua.

Iritsi zen eguerdia, eta ez zuen atertzen **errepikak**. Juan Garzia

Albarekin, kanpaien **errepikak** esnatu zuen jendea. Juan Garzia

Hiriaren alaitasuna eta zoramena fanfarreek eta tronpetek islatu zuten, eta baita aireratutako kanpaien **errepikak** ere. Agustin Otsoa

Halako batean, bandera zuriak agertu ziren almenetan, goizeko haize leunak astinduta, eta Pippinek, ozen eta urrun, zilarrezko tronpeten antzeko **errepika** argi eta sendoa entzun zuen. Agustin Otsoa

Geroxeago etorriko da **errepika**: gehien maite dudana horixe da, eta aurrera botatzeko duen modu zakarra, labar batek itsasoaren kontra bezala. Monika Etxebarria

7 *ipar* errepetizionea, entsaioa.

Ikusgarriko bideo baten muntatzea egin behar zuela, bi **errepikaren** artean hartu zuen oren pare bat galderei erantzuteko. Berria - Kultura

8 kantetan, beste ahapaldien artean errepikatzen den ahapaldia.

Etengabe sartzen dugu zerbait berria, ahapaldi edo **errepika** guztietan dago zerbait aurrekoan ez dagoena, ahots bat, erritmo ezberdin bat, ustekabeko estilo bat Berria - Kultura

9 ***errepikan*** *adlag*

Ezer gutxitarako balio duten gauzen altxor bilduma honetan ere behin eta berriro gai berak datoz **errepikan**: arrak eta emeak, emeak eta arrak, misoginia eta zuzentasuna, natur zientzietako bitxikeriak, mito zaharren zipriztinak... J.M. Olaizola "Txiliku"

Ordukoa du gizakiak bere izatearekiko kezka ere, Jainkoaren algara guztizko haren oihartzun, barrenean "gu ba al gara? Gu ba al gara" etengabe **errepikan**. Joxerra Garzia

Eta Euskal Herriko karlista gazte haiek, orduan, bero-bero **errepikan**: [...]. Txillardegi

Orotariko Euskal Hiztegian ere, beste horrenbeste, Azkueneko esanahia **errepikan**. Pello Zabala

· Gero, ordu txikietako sukarrean, Dodoven eldarnio esanezinak, zoofilia eta guzti, eta gure kanpaiak desorduzko **errepikan**, gozo eta zut, urrikalgarri. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten errepika (4); **da errepika** (5); **du errepika** (3); **edo errepika** (3); **errepika ari** (3); **errepika bat** (6); **errepika bezala** (3); **errepika eta** (10); **errepika eta errepika** (5); **errepika hau** (3); **errepika hori** (3); **errepika larunbatean** (8); **eta errepika** (17); **haren errepika** (3); **zuen errepika** (3)

---

errepikaezin *(orobat **errepika ezin**) izond* ezin errepikatuzkoa.

Musikak aspaldi elkartu zituen, 60ko hamarkadan, boskote **errepikaezin** batean. Berria - Kultura

Ez gara konturatzen zein zirraragarria den norbaitek musika edo antzerki arloan guri zuzeneko emanaldi **errepikaezin** bat eskaintzeko prest egotea. Berria - Kultura

Honek arkitektoa eta injinerua deitu zituen, une **errepikaezin** hura elkarrekin goza zezaten. Karlos Linazasoro

Ez dakit, benetan ez dakit nola deskribatu gu bion artean zegoena, hitzik ez dut aurkitzen ezta istant **errepika ezin** hartan bainu-bata eranzteko egin zuen mugimendua deskribatzeko ere. Karlos Zabala

Jainkoari, zeinak, mundua ongi biribilduta gero -zazpigarren egunean atseden hartzera zihoala- ostikada izugarria jo eta gol kosmiko **errepikaezin** hura sartu baitzuen, gure planeta, harez geroztik, paralelo eta meridianoen arteko sareetan harrapatuta uzten zuela. Joan Mari Irigoien

Ekitaldi bakoitza **errepika ezina** da, eta egoera osatzen duten alderdien aipamenek lotura berezi bat sortzen dute bertsolariaren eta entzuleen artean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gure amaigabeko maitasun eta begirunea ere, **errepika ezina** den gizaki honentzat. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errepikaezina da (6); **errepikaezina dela** (3)

---

errepikaezintasun *iz* errepikaezina denaren nolakotasuna.

Gero eta argiago daukat segundoaren **errepikaezintasuna**. Ana Urkiza

Ikusgarria bat-batekotasunean oinarritzen denean, ordea, une-gune horretako **errepikaezintasunean**, sortzaile eta entzulearen artean gertatzen denak garrantzi berezia hartzen du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

errepikagai *iz* errepikatzeko gaia.

Luzamendua egon daiteke, ikusi dugunez, baina errepikapen luzatuetan ere **errepikagaiak** bere horretan dirau. Iñaki Arranz

---

errepikagailu *iz* seinale bat errepikatzeko gailua.

Espainiako azpiegitura eta interes ekonomikoen aurka telefono **errepikagailu** bati eraso eginez lehergailuz buruturiko ekintza. Berria - Euskal Herria

Mende berri hau hasi da jarriz iragan urtarrilaren 29an lehen **errepikagailua** 90,5 MHz frekuentzian Azkaine eta Donibane Lohizuneko aldean. Herria

Euskal kulturaren aldeko Herrien Sindikatak dio 50 000 euro gostatzen zaiola Euskal telebistako **errepikagailuen** mantenmendua iparraldean. Herria

Telegrafo-sare baten antzekoa da nerbio-sistema: **errepikagailu** asko ditu, eta leku batetik hartu eta beste batera igortzen ditu mezuak. Irene Aldasoro

Gure Irratia-ren **errepikagailu** berria martxan dago Ibardineko kaskotik. Herria

Antena **errepikagailuetan** hainbat bonba jarri zituen komando bateko kidea zela esan zuten telebistan. Alberto Barandiaren

---

errepikagarri *iz* errepika daitekeena, errepikatzeko modukoa.

Kantu xinpleak eta **errepikagarriak**, iraunkorrak, nornahik gogotik kantatzeko gisan. Herria

Zer pentsa, adibidez, Luriaren "Mnemonista"ren harako oroitzapen -itxuraz- etengabe eta erabat **errepikagarri** haietaz, iraganeko "memoria artifizial" finkatu eta zurrunetatik hain hurbil diren oroitzapenez? Xabier Olarra

Funtzio enuntziatzailea ezaugarritzen duen materialtasun **errepikagarri** honek enuntziatua agerrarazten du objektu zehatz eta paradoxiko modura, baina baita gizakiek ekoizten dituzten objektu guztien arteko bat bezala ere. Xabier Arregi

Ez osotasun organiko autonomo bezala, bere baitan itxia eta zentzua izateko gai dena, baizik eta koexistentzia-arlo baten osagai bezala; ez gertaera iragankor edo objektu bizigabe bezala, baizik eta materialtasun **errepikagarri** bezala. Xabier Arregi

Handik aurrera lastozko aulkitxo batean eserita ematen zuen eguna, mendiei beha, emazteak eta seme-alabek lan egiten zuten bitartean, burua mundua baino jira-bira arinago eta **errepikagarriagoan** : maitasuna eta bere larrialdiak, sentimenduen oinaze eta plazer nahasiak, grinen oldar jarkiezina, bizitzaren gorabeheren jopua izatea, eta berriro larrialdien gorabeherak, grinaren oinazea, sentimenduen maitasuna, bizitzaren plazera... Xabier Mendiguren Elizegi

Zientziaren oinarri nagusietako bat horixe da, lanak **errepikagarri** izan behar dute. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
materialtasun errepikagarri (3)

---

errepikagarritasun *iz* errepikagarria denaren nolakotasuna.

Benjamin, bere garaikide asko bezala, irudien **errepikagarritasunak** txunditu zuen, mekanikoki errepika zitezkeen irudi automatikoenak batez ere; prentsako argazkia zen horren eredua. Josu Zabaleta

Errepikagarritasun teknikoa eta auraren galera. Josu Zabaleta

---

errepikagune *iz* errepikatzeko gunea.

Irail honetatik aitzina, **errepikagune** hori zinezko antzokia bilakatuko baita. Berria - Kultura

---

errepikaketa *iz* errepikatzea.

Zenbakien kontaketa bat eta objektuen **errepikaketa** bat baino gehiago aurki dezakegulako gustatzen zaigu Durangoko Azoka. Berria - Kultura

---

errepikakor *izond* errepikatzeko joera duena.

Elizetako kanpaien hots **errepikakorra** . Txillardegi

Lelo **errepikakorrak** eragingarriak izaten dira, eta metagrama mailakatuek errepikapenaren onurei progresioarenak gehitzen dizkiete. Iñaki Arranz

Musika **errepikakorra** bezalakoa. Joxan Elosegi

Lan horretan ondo laguntzen du erritmo **errepikakorreko** musikak. Berria - Kultura

Euskadiko Kutxaren ezaugarririk nagusietarikoa kapitalizazio handia da, mozkin **errepikakorrak** ugari baitira erakundean. Berria - Ekonomia

Urratsez urrats, testuak aurrera egiten du aurretik ezarritako arau batek hala aginduta, modu erregular eta **errepikakor** batean. Iñaki Arranz

Erlojuak eta segundoen frakzioak asmatu aurretik, norbaitek iturrietako tanta gogaikarri bakar eta **errepikakor** horren tortura nozitu ote zuen sekula? Harkaitz Cano

Mugimendu **errepikakor** edo automatiko sail bat; hala nola, espasmoak, tikak, kulunkak, jirabirak, hatz-jolasak edo txaloak. Xabier Olarra

Hurrengo hitzak zein izanen, dudarik batere ez nik; joandako astean bortzetan aditurik nuen esaldi ezagun, **errepikakor** , nekagarria: "ezin orain telefonoan jarri". Aingeru Epaltza

Tristura itzela bazterretan; eta San Juan elizako kanpandorre karratutik hedatzen zen lanturu metaliko **errepikakorra** , ezin jasana. Txillardegi

Larunbateko egunsentian, antxeten eta kaioen karraka **errepikakorrek** esnatu ninduten. Txillardegi

Barreak barre, **errepikakorra** hasi da bihurtzen istorioa, baina ahozabalka hasterako amaitu da hala ere, hasieratik hamar bat minutura. Xabier Mendiguren Elizegi

Horregatik, estimulazio sexualak izan behar du **errepikakorra** , bibrakorra, bizia, erritmikoa eta etengabea. Luis Elberdin

Mugimendu ziklikoek giza historian, gurdi-gurpil baten biraketa fisikoek bezalaxe, monotonoki **errepikakorra** den mugimendu zirkularraren bidez, erritmo luzeagoko beste mugimendu bat eragiteko modua dutela. Iñaki Mendiguren

Elizek ez dutela beste ezertarako balio hutsalki **errepikakor** diren zibilizazioen krisalida iragankor izateko baizik. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errepikakor bat (3); **errepikakor eta** (4); **eta errepikakor** (4); **eta errepikakorra** (5); **oso errepikakorrak** (3)

---

errepikakortasun *iz* errepikakorra denaren nolakotasuna.

Hor arteak bereganatu egiten ditu bai autismoaren alde sendoetako batzuk eta bai ahul zenbait ere: berregintza eta berremate xehe eta zehatzerako gaitasun nabarmenarekin batera, **errepikakortasuna** eta estereotiporako joera. Xabier Olarra

Erlijioaren historiak unitarioa eta progresiboa dirudi, zibilizazioen historien aniztasun eta **errepikakortasunaren** kontrastez. Iñaki Mendiguren

---

errepikaldi **1** *iz* errepikatzen den aldia.

Errepikaldi haiek guztiz mekanikoak izaten ziren, ia pentsatu gabeak, eskolan zuela eternitate bat ikasitako abezearen hurrenkera zentzugabea buruan sartu nuen antzera. Alberto Ladron Arana

Hasieran, liburuko partidetako jokaldiak buruz ikasten saiatzen nintzen, eta, bai, hainbat **errepikaldiren** ondotik erdiesten nuen piezak antzinako maisuek antzinako denboretan bezalaxe mugitzea. Alberto Ladron Arana

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Musika **errepikaldia** ortzegun arratsalde guziz dute. Eneko Bidegain

3 *ipar* entsaioa, erepetizionea.

Haatik **errepikaldi** beharrezko batzu eginen dira aitzinetik, musikariekin, azkena martxoaren 12an, larunbat arastiriko 6etan, Jai Alaian. Herria

---

errepikaleku *iz* errepikatzen lekua.

Aretoaren ertzean, lau **errepikaleku** izanen dira. Berria - Kultura

Egonaldi horiek egokiak zaizkie, **errepikalekuen** atzematea ez baita erraza. Berria - Kultura

---

errepikan ik **errepika 9**.

---

errepikaño *iz adkor* errepika.

Horra nola sartu giren beraz maiatzean, gogoan ginuela ere orobat aspaldiko **errepikaño** hori, maiatza omen dela urteko sasoinik ederrena. Herria

errepikapen 1 *iz* errepikatzea.

Herenegungo saioaren **errepikapena**. Berria - Euskal Herria

Iazko Munduko Kopako partidaren **errepikapena** egingo dute Frantziak eta Irlandak, gaur, Sei Nazioetako Torneoaren estreinakoan, Parisen. Berria - Kirola

Idazlea idazle handia zen -barka bedi **errepikapena**-, boladan zegoen, egunkariak saltzen asko laguntzen zuen. Jon Alonso

Hauteskundeen **errepikapena**, abenduaren 26an, askoz ere lasaiagoa izan zen. Berria - Mundua

Zuzendaritzak ez baitu errepikatu nahi uztail/agorril hauetan, **errepikapenak** ekartzen duen gastuen gatik. Herria

Hizkuntz unitate bat hartu eta berriro eman, horra hor **errepikapenaren** funtsa. Iñaki Arranz

Errepikapenari beste hizki batzuk gaineratzeko modu errazen eta emankorrena hitz bikoitza atzizkiez hornitzea da: *motz-motza, motz-motzeko, motz-motzari... borborrean, dardartu, marmarti, pil-pilean...* Iñaki Arranz

Inoiz *m-* batez agertzen zaigu **errepikapena**, baina ez da lehengo protesi ihartua: *urri eta murri, hotz eta motz, txotx ala motx, zinak eta minak.* Iñaki Arranz

Euskaraz aurkitu dugun adibide luzeena 6 letrak osatzen dute, **errepikapena** gauzatzeko atzizki baten laguntza behar bada ere: *arantzarantz.* Iñaki Arranz

Topikoak **errepikapena** du kondena, mila aldiz erabili izanak bihurtzen du lelo bat astun. Anjel Lertxundi

Kaosak aukera ematen digu gutako bakoitzari **errepikapenean** ez erortzeko, bestela ez litzateke ona izango taldearentzat. Berria - Kultura

Aurreneko aldia zen nik neuk ere filmak ikusten nituena (moztu ere egin gabe zeuden artean), eta etsia hartua ere baneukan aldez aurretik, dena **errepikapenez** josia azalduko zela. Joxe Austin Arrieta

Kierkegaardek zehazki formulatu zuen, bere ***Errepikapen*** saiakeran, nozio horren zentzua zein zen. Joseba Zulaika

Ruche jaunak gogoko izan zuen absurdoaren bidezko arrazoiketaren eta atzekoz aurrerako **errepikapenezko** arrazoibidearen nahasketa fin hori. Jon Muñoz

Beharrezkoak ez diren **errepikapenak** eta egokiak ez diren adierazpenak ezabatu. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Autismoaren beste bereizgarri bat, Kannerren iritziz, "gauza beren **errepikapen** tematia" zen, eta mugimendu eta hots errepikakor eta estereotipatuen forma har zezakeen, edo, sinpleago, estereotipoarena. Xabier Olarra

Uhinen **errepikapen** hipnotikoak lagunen barnearekin bat egin zuen. Fernando Morillo

Ama lotuago zegoen elizara, baina hori, beregan, jasotako tradizioen transmisioa zen batik bat, ohituren **errepikapen** kulturala nik uste. Xabier Mendiguren Elizegi

Birtuosismoa, partituraren irakurketa pertsonala egiteko ahaleginik gabe, **errepikapen** mekaniko eta hotza baino ez da. Alberto Barandiaren

Kafe bat interfonotik eskatu eta hartzea zen **errepikapen** erritual horretako puntu nagusietako bat. Jon Alonso

Musika arloko hitza da kadentzia, eta soinu edo mugimenduen erritmo edo **errepikapen** erregularra izendatzeko balio du. Iñaki Arranz

Hainbat zibilizazioren historietan gerra eta bake-zikloen **errepikapen** erregularra erakusten da. Iñaki Mendiguren

Errepikapena nolakoa den galdetzean, **errepikapen** hutsa den *(elur eta elur)* edo aldaketa onartzen duen *(elur-melur)* aztertu behar dugu, are serie batean mailakatzen den *(melur-elur-lur-ur).* Errepikatzen den hitz zatia hitz osoa ere denean, **errepikapen** hirukoitza egiteko aukera ematen digu hizkuntzak: [...]. Iñaki Arranz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Scalako kritikari musikala izan behar da, tonalitateagatik bereizten jakiteko nola egin ote den tiroa, **errepikapen**-pistola batekin ala danbor-errebolber batekin! Koldo Biguri

Armekin ere saiatu ginen -pistolak, metrailetak, eta ebakitako **errepikapen**-eskopetak-, erabileran ohitzeko. Rafa Egiguren

Totelgramak ere tartean badaude, **errepikapen** efektua askoz nabarmenagoa da. Iñaki Arranz

Izadiaren berariazko imitazioak, berriz, gizonak egiten duen izadiaren imitazioak, beti eskatzen du **errepikapen**-desira bat. Josu Zabaleta

Aipatzekoak: EAJk Ezkerraldean egindako beste ekitaldien **errepikapen** itxura ere hartu zuen atzokoak. Berria - Euskal Herria

Zeremoniek, erituen **errepikapen** obsesio goxo batez beterikoek, eternitateak denbora jan balu bezala, aldareko urreek, arropen distirak, loreen perfumak, intsentsuak, kantuen xarmak zentzu guziak asebetetzen zizkidaten. Piarres Aintziart

Zer da, ordea, liburu bat **errepikapen**-, eragin- eta zabalkunde-efekturik gabe? Anjel Lertxundi

Antzekotasun eta **errepikapen**-fenomenoak prozesu bati lotzen dizkio, itxuran kausala dena. Xabier Arregi

Eta **errepikapen**-doinuak hautatzen ditugu, ez entzulearekiko batasuna lortzeko, bertsotik bertsorako tarte horretan denbora irabazteko baizik. Andoni Egaña

Freuden **"errepikapen**-konpultsioa". Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten errepikapena (8); **baten errepikapena bizkaieraz** (5); **bokal baten errepikapena** (5); **errepikapen bat** (6); **errepikapen huts** (3); **errepikapen hutsa** (3); **errepikapena bizkaieraz** (5); **errepikapena da** (5); **errepikapena ez** (6); **errepikapena ez da** (4); **errepikapenaren atalean** (3); **eta errepikapen** (8); **eta errepikapena** (3)

---

errepikapendun *izlag* errekipapena duena.

Egizue aproba bertso bera **errepikapendun** doinu batekin abestuz eta errepikarik gabekoan kantatuz. Andoni Egaña

---

errepikarazi, errpikaraz(i), errepikarazten du *ad* errepikatzera behartu.

Herentziak **errepikarazten** digu historia, bertikala, arbasoena. Markos Zapiain

Duke handiak hainbat aldiz deitu zion ustezko Mikel Strogoffi eta Jauregi Berriko kabinete inperialean entzundako guztia **errepikarazi**. Karlos Zabala

Esaldia **errepikarazi** nion. Jon Alonso

Poemak eramateko esan zidan, umetakoak, eta orain egiten ari nintzenak ere bai; ozenki irakurtzeko eskatzen zidan, ohe ertzean eserita, eta batzuk behin eta berriz **errepikarazten** zizkidan. Juan Kruz Igerabide

Nahiago dugula anonimotasunean urtu, futbol partidan, manifestazioan, elizan eta mitinetan bezala, alegia, pentsatu beharrean kontsignak goraki **errepikarazten** dizkizuten talde goibeletan bezala. Markos Zapiain

Etengabe moztu zuen prestatzaileak, behin eta birritan **errepikarazi** zien mugimendu bat edo beste. Josu Landa

---

errepikarazle *iz* errepikarazten duena.

Joanes borroka politiko guztietako gizkei plazaratu zen, manifestaldietan banderolaren ekarle, lelo bizien **errepikarazle**, megafonia sorbaldan eta banatzeko agiriak ahurrean. Itxaro Borda

---

errepikari *izond* errepikatzen dena.

Zure obran gai edo elementu **errepikariak** daude. Ana Urkiza

Nahitaezko eskema multzo bat da, mendetasunena, ordenarena, jarraitasunena, hor banatuko direlarik kontzeptu modura balio ahal izango duten osagai **errepikariak**. Xabier Arregi

Osagai **errepikariak** definitzea baimenduko luke, euren kontrakotasun motekin, eta euren banakotze-irizpideekin. Xabier Arregi

Oso goizetik, eta era **errepikarian** detektatzen da negatibitate hutsaren esperientzia eta adierazpena imajina guztiak eta kontzeptu guztiak berriro disolbatu eta desegiten

dituzten esperientzia eta lengoaia: hitz batean, Ezerezaren esperientzia da. Joan Mari Lekuona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
osagai errepikariak (3)

---

errepikatasun *iz* errepika.

Ravel-en Bolero famatu haren etengabeko **errepikatasuna** ari zen bikotea aprobetxatzen kontaktua malgukiago erdiesteko. Joxemari Iturralde

---

errepikatsu *izond* errepikaz betea.

Gorpua su-lamadek emeki-emeki milikatzen duten bitartean, ahaideek aspertzeke kantatzen dituzte kantu tristeak, arabiar melodia **errepikatsuak** oroitarazten dizkigutenak. Gotzon Garate

---

errepikatu *(ETCn **31.101** agerraldi)* **1** berriro egin; berriro esan.

"Leku zibilizatuetan bakarrik edan behar da, taxiak eskura egoten direlako", **errepikatzen** zuen ehun metrotik ehun metrora gure irakasleak. Bernardo Atxaga

Udan sartuak gara eta, beraz, jadanik zabalduak izan diren emankizunak **errepikatzen** dituzte. Herria

Ehiza-zainak aginduak **errepikatu** zituen. Xabier Olarra

Keinua **errepikatu** zuen Rafak. Josu Landa

Konplota, **errepikatu** nuen, hizki bakoitza hausnartuz. Karlos Linazasoro

Hiru aldiz **errepikatu** behar izan zidan amak izen aldrebes hura. Alberto Ladron Arana

Oraindik mahai buruan esertzeko zegoela, bota zuen lehendabizikoz gerora gutxienez hiru edo lau aldiz **errepikatuko** zuen "muga zaitezte gertakizunetara" bere ustez desegoki hura. Ramon Saizarbitoria

Gaur arrazoi handiak izango nituzke beste esaera hura **errepikatzeko**: "Ezbeharrak ez dira inoiz banaka iristen". Josu Zabaleta

Zenbat eta zenbat aldiz ez digute **errepikatu** gaizki zabiltzala gure futbolariak, ez zutela deus balio, buruan zaukatela gaitza, beharrezkoa zela haien sendatzeko mediku berezi bat: psikiatra. Herria

Aska/tasu/na! **errepikatzen** genuen. Joseba Sarrionandia

Errepikatuko didazu, mesedez, egilearen izena eta eleberriaren izenburua? Jon Arretxe

Alta, **errepikatzen** zuen Xarlesek etengabe, ez ziren denak herri honetan bizitzen ahal: ez zen lanik, ez zen dirurik eta bigarren gerla bururatu ostean etxeetara zetorren dirua Paris edo Bordeletik faturrak zuen mandatez ekartzen zuen. Itxaro Borda

Berriz ere, itxarongelako ateraino abiatu eta arestiko ibilbidea **errepikatu** du. Pello Lizarralde

Hainbat bider **errepikatzen** dira *bbk* letrak. Joseba Sarrionandia

Nire hitzak **errepikatu** baino ez zuen egin. Ramon Saizarbitoria

Inprobisazio hutseko fasean, aldiz, *dispositio* lanak gogoan edukitzen du batez ere oinak ez **errepikatzea**, hau da, poto ez egitea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

-Sabine zara - **errepikatu** nuen orduan, erabat ziur jada. Ramon Saizarbitoria

Nirekin batera **errepika** ezazu nire zorionaren adierazpen hori. Jon Muñoz

Gure gizartean hainbeste erabiltzen eta **errepikatzen** ditugu hitzak, eta errealitate garrantzitsuei buruzko hitzak, non barrutik hustuak eta zimelduak geratzen baitzaizkigu. Askoren artean

Argumentu bera **errepikatzen** da. Imanol Unzurrunzaga

Hitz berak **errepikatu** zituen. Daniel Landart

Eskuarki onartuta dagoen ustea, alabaina, gizakiok, gainerako bizidunek ez bezala, badugula iragana **errepikatzera** behartu nahi gaituenari itzuri egiteko ahalmena alegia. Markos Zapiain

Aura galdu da argazkia asmatu zenetik, argazkiaren bidez segituan eta nahi adina **errepika** baitaiteke irudia, eta bigarren maila batera apaltzen da artelanen gurtzazko balioa. Josu Zabaleta

Mirariak **errepika** daitezkeela mirariak egiteko indarra gutxiagotu gabe. Jon Alonso

Errepika ezan nirekin nik esaten dudana. Juan Garzia

- **Errepika** iezadan ostera esan didanana, Dorotea. Juan Garzia

-Ez naun kontatzen ari; **errepikatzen** ari naun. Jon Muñoz

-Ez naiz ari, ez **errepikatzen**, ez errezitatzen. Jon Muñoz

Dugun **errepika**: Bib'Errepublika! Piarres Xarriton

Barne egitura hori behin eta berriro hitz guztietan **errepikatzen** denean, kadentziaz hitz egiten dugu. Iñaki Arranz

Ahozko literaturan aurkitzen ditugu, gehienbat, esanahi zehatzik gabeko hitz hauek, baina euskal literatura idatziaren historian ere, hasieratik bertatik horrelako leloak **errepikatzen** dira: [...]. Iñaki Arranz

Errepikatzen, eta **errepikatzen** den disko akastuna da, hipnotikoki **errepikatzen** disko akastuna. Jon Alonso

Gehienetan bi letra **errepikatzen** dira: *baba, gogo, kaka, koko, kuku, lili, nini, pipi, titi, tutu, zozo...*baina gehiago ere izan daitezke: *tuntun, txutxu, txantxan...* *Iñaki Arranz*

Errepikatzen den hizkuntz unitateak eman diezaguke lehen hurbilketa baterako gakoa: ZER **errepikatzen** da? Iñaki Arranz

Nor zara zu?' **errepikatu** dio soldaduak Gorriari. Joseba Sarrionandia

-Zergatik? - **errepikatu** nuen, itsuak hartuta- Azalpen bat zor didak. Aingeru Epaltza

-Ez dun entzun? - **errepikatu** zion Florentek-. Karlos Zabala

-Ez, ez, ez dut hori nahi - **errepikatu** zuen. Karlos Zabala

Hori du **errepikatu** 200 enbaxadoreren aitzinean eman dituen esplikazioneetan. Herria

Ez naiz ari **errepikatzen**; kontatzen ari naiz! Jon Muñoz

Zizekek Leninez zioen bezala, **errepikatzea** ez da historian zehar eginiko akatsak onartzea edo haien jarraipena bilatzea, baizik eta egin ez zuenaren promesa berpiztea. Joseba Zulaika

Zer nahi duk, letrarik letra **errepikatzea**? Joseba Sarrionandia

Hasierako hitza amaieran **errepikatzea**, tarteko hitz guztiek ezberdinak izan behar dutela. Iñaki Arranz

Errepikatzen dizut ez duzula liburu hau irakurriko! Ramuntxo Etxeberri

Denbora ozta-ozta dago, bada, iraupen-irudian irudikatua, den bezala aurkeztua, bertaratua, **errepikatua**. Josu Zabaleta

Emeki emeki sekulan aipatuak ez ziren gertakari horiek jalgitzen dira eta Frantziak aitortzen du orain orduan eginikakoa, bai Aljerian duen enbaxadoreak erranik, bai ere Barnier jaunak **errepikaturik**. Herria

Hamaika aldiz **errepikatutako** esamoldea, baina egia dioena: hildakoa maite izan zutenak mututzera behartuta daude; besteek, berriz, korapilorik gabekoek [...], hitza hartu eta haren izenean mintzo dira. Bernardo Atxaga

Batxilergoko 4.a **errepikatzera** bildu zitzaigun, ikasketen orduko antolamenduaren ariora. Aingeru Epaltza

Juan Bautista besteak baino urtebete zaharragoa zen eta estudioak utziak zituen, laugarren urtea **errepikatzen** ari zela bota baitzuten, eta hamasei urte noiz beteko zain

zegoen aitarekin arrantzontzian lanean hasteko. Joseba Sarrionandia

2 (adizlagunekin)

Orain oroitu egin behar dugu zer gertatu zen, mende erdiko historia mingarria berriro **errepika** ez dadin. Berria - Kultura

Behin eta berriro **errepikatu** beharra izango dugu, bada: [...]. Josu Zabaleta

Ondo sentitzeko noizbehinka **errepikatzen** zuen ariketa izango zuen hori. Joxean Agirre

Ez baitira hainbeste ere bizitza osoan zehar bururatzen zaizkigun ideiak, eta batek bizpahiru irudi eta lau metafora etengabe **errepikatzen** baititu beti. Ramon Saizarbitoria

Ez da arraroa ahopeka **errepikaturiko** hitz baten soinuak, asoziazioaz, ahozko eraikin polifonikoak eratzera eraman dezan. Jon Alonso

Ene aitak hamabost laurogeita hamalau ibilbideko hexagono batean ikusi zuena, M C V letrez osatua zen: letra berberak maltzurki **errepikaturik**, lehenbiziko lerrotik hasi eta azkeneraino. Juan Garzia

Benjamin, bere garaikide asko bezala, irudien errepikagarritasunak txunditu zuen, mekanikoki **errepika** zitezkeen irudi automatikoenak batez ere; prentsako argazkia zen horren eredua. Josu Zabaleta

Chirac presidentak aski **errepikatzen** du zergak behar direla arindu. Herria

Elkarketa horiek infinituki **errepika** ditzake ordenagailuak. Berria - Kultura

Etxe ondoan tenk egindako soldaduen ilaran euskal hitz bakan batzuk **errepikatzen** ziren nabarmenki: "Endárlatsa". Txillardegi

Halaxe **errepikatu** ziren aldeko iritzi beroak eta gutxiespenezko jarrerak. Karlos Zabala

-Ez dut janen - **errepikatzen** zidan tematsu, kasko-gogor eta une hartan zinez mainontzi. Itxaro Borda

3 (era burutua izenondo gisa)

Oihartzun murriztua: hitz **errepikatuak** hizkiren bat galtzen du. Iñaki Arranz

Estreinakoa kamioi baten azantzak eragotzi zidan, baina hurrengo mezu **errepikatuak** argi eta garbi entzun ahal izan nituen. Karlos Linazasoro

Olatuen eraso behin eta berriz **errepikatuaren** kontra hiria defendatzen. Jon Muñoz

Zehazten ari zen soinua: kliska mila aldiz **errepikatu** bat. Jon Muñoz

Alabaina, haren eskaintza behin eta berriz **errepikatuak**, betiere emakume berak hartu izanagatik, amorante berri batek hartzen zituen beti. Jon Muñoz

Konparazio matxista hau Ortega-k gogokoa zuen nonbait, **errepikatua** aurkituko dugu. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

berriro errepika (8); **berriro errepika ez** (7); **errepika daiteke** (7); **errepika dezagun** (5); **errepika dezake** (4); **errepika ez** (31); **errepika ez dadin** (19); **errepika ez daitezen** (8); **errepika ezazu** (5); **gertatutakoa errepika** (5); **gertatutakoa errepika ez** (4)

agindua errepikatu (4); **aldiz errepikatu** (63); **aldiz errepikatu behar** (9); **aldiz errepikatu zuen** (12); **aski errepikatu** (5); **askok errepikatu** (8); **askok errepikatu dute** (6); **askotan errepikatu** (11); **aspertzeraino errepikatu** (4); **baino gehiagotan errepikatu** (10); **bat aldiz errepikatu** (6); **bat errepikatu** (9); **behin errepikatu** (4); **bera errepikatu** (37); **bera errepikatu da** (4); **bera errepikatu nahi** (4); **bera errepikatu zen** (6); **bera errepikatu zuen** (9); **berak errepikatu** (8); **berriro errepikatu** (45); **berriro errepikatu behar** (5); **berriro errepikatu zuen** (6); **berriz ere errepikatu** (4); **berriz errepikatu** (43); **berriz errepikatu du** (8); **berriz errepikatu zuen** (7); **besterik errepikatu** (8); **bezala errepikatu** (5); **bi aldiz errepikatu** (4); **bider errepikatu** (15); **bizpahiru aldiz errepikatu** (6); **bozak errepikatu** (4); **da errepikatu** (9); **dagoela errepikatu** (7); **dela errepikatu** (9); **dela errepikatu du** (4); **edo errepikatu** (5); **egindakoa errepikatu** (5); **ere errepikatu** (18); **eredua errepikatu** (5)

errepikatu ahal (13); **errepikatu ahal izango** (7); **errepikatu ahal izateko** (4); **errepikatu baino** (4); **errepikatu baitzuen** (4); **errepikatu baizik** (5); **errepikatu behar** (60); **errepikatu behar izan** (19); **errepikatu behar izaten** (5); **errepikatu beharko** (18); **errepikatu beharko da** (4); **errepikatu beharra** (5); **errepikatu beharrean** (5); **errepikatu beharrik** (5); **errepikatu besterik** (11); **errepikatu besterik ez** (10); **errepikatu da** (23); **errepikatu den** (7); **errepikatu dio** (10); **errepikatu diot** (5); **errepikatu ditu** (8); **errepikatu du** (63); **errepikatu duen** (9); **errepikatu dut** (7); **errepikatu dute** (25); **errepikatu dute esaldia** (6); **errepikatu duten** (4); **errepikatu edo** (8); **errepikatu egin** (31); **errepikatu egin beharko** (4); **errepikatu egin zen** (4); **errepikatu egin zuen** (6); **errepikatu egingo** (14); **errepikatu egiten** (41); **errepikatu egiten da** (7); **errepikatu egiten dira** (5); **errepikatu egiten du** (5); **errepikatu ere** (6); **errepikatu eta** (34); **errepikatu eta gero** (4); **errepikatu ez** (9); **errepikatu ez dadin** (4); **errepikatu gabe** (8); **errepikatu izan** (19); **errepikatu izan du** (4); **errepikatu nahi** (44); **errepikatu nahi du** (13); **errepikatu nahi dute** (4); **errepikatu nahi izan** (4); **errepikatu nahian** (6); **errepikatu nion** (13); **errepikatu nituen** (6); **errepikatu nuen** (33); **errepikatu ohi** (17); **errepikatu ohi zuen** (7); **errepikatu omen** (4); **errepikatu ondoren** (6); **errepikatu zen** (31); **errepikatu zidan** (22); **errepikatu zien** (10); **errepikatu zigun** (4); **errepikatu zion** (43); **errepikatu zioten** (4); **errepikatu ziren** (9); **errepikatu zituen** (30); **errepikatu zituzten** (9); **errepikatu zizkion** (4); **errepikatu zuen** (367); **errepikatu zuen aitak** (4); **errepikatu zuen behin** (8); **errepikatu zuen berak** (4); **errepikatu zuen bere** (4); **errepikatu zuen harryk** (8); **errepikatu zuen neskak** (4); **errepikatu zuenez** (4); **errepikatu zuten** (32); **errepikatu zuten atzo** (4)

esaldia errepikatu (7); **esandakoa errepikatu** (10); **esandakoa errepikatu zuen** (5); **eta berriro errepikatu** (30); **eta berriz errepikatu** (37); **eta errepikatu** (29); **eta errepikatu egin** (5); **eta errepikatu zuen** (5); **eta galdera errepikatu** (4); **ez dagoela errepikatu** (4); **galdera errepikatu** (9); **gauza bera errepikatu** (8); **gehiagotan errepikatu** (12); **gehien errepikatu** (5); **geroztik askok errepikatu** (6); **gertatutakoa errepikatu** (5); **guztiak errepikatu** (4); **hainbeste aldiz errepikatu** (4); **hamaika aldiz errepikatu** (6); **hiru aldiz errepikatu** (7); **historia errepikatu** (10); **hitz errepikatu** (5); **hitzak errepikatu** (14); **hitzak errepikatu zituen** (9); **hitzez hitz errepikatu** (5); **hori errepikatu** (12); **horiek errepikatu** (4); **hura errepikatu** (5); **ibilbidea errepikatu** (4); **izena errepikatu** (4); **keinua errepikatu** (5); **leloa errepikatu** (4); **maiz errepikatu** (5); **zela errepikatu** (4); **zenbait aldiz errepikatu** (4); **zenbat aldiz errepikatu** (7); **zuen errepikatu** (4); **zuena errepikatu** (4)

aldiz errepikatua (6); **aldiz errepikatuko** (5); **aldiz errepikatutako** (4); **bera errepikatuko** (8); **bera errepikatuz** (6); **berriro errepikatuko** (10); **berriro errepikatuz** (4); **berriz errepikatua** (4); **berriz errepikatuz** (7); **dela errepikatuko** (4); **errepikatua izan** (4); **errepikatua zuen** (4); **errepikatuak izanen** (5); **errepikatuak izanen dira** (4); **errepikatuko al** (6); **errepikatuko da** (12); **errepikatuko den** (11); **errepikatuko dira** (5); **errepikatuko du** (11); **errepikatuko dugu** (5); **errepikatuko dut** (8); **errepikatuko dute** (12); **errepikatuko ez** (11); **errepikatuko ote** (4); **errepikatuko zuen** (4); **errepikatuz eta** (8); **errepikatuz gero** (15); **eta berriro errepikatuko** (4); **eta berriz errepikatua** (4); **eta berriz errepikatuz** (6); **eta errepikatua** (4); **eta errepikatuak** (5); **hitzak errepikatuz** (6); **hori errepikatuko** (6)

akatsak ez errepikatzeko (4); **bera errepikatzeko** (5); **berriro ez errepikatzeko** (4); **bigarren txanda errepikatzea** (5); **epaiketa errepikatzeko** (4); **errepikatzea baino** (6); **errepikatzea baino ez** (4); **errepikatzea da** (13); **errepikatzea espero** (5); **errepikatzea ez** (5); **errepikatzea ez da** (4); **errepikatzea izango** (4); **errepikatzea nahi** (6); **errepikatzeak ez** (5); **errepikatzeak ez du** (4); **errepikatzeko agindu** (7); **errepikatzeko agindu du** (4); **errepikatzeko arriskua** (6); **errepikatzeko asmoz** (4); **errepikatzeko aukera** (14); **errepikatzeko erabakia** (4); **errepikatzeko eskatu** (18); **errepikatzeko eskatu du** (4); **errepikatzeko eskatu zion** (4); **errepikatzeko gai** (5); **errepikatzeko prest** (5); **eta errepikatzea** (4); **eta errepikatzeko** (5); **ez errepikatzea** (20); **ez errepikatzeko** (46); **ez errepikatzeko eskatu** (4); **garaipena errepikatzeko** (5); **gertatutakoa ez errepikatzeko** (5); **hori errepikatzea** (5); **hura errepikatzeko** (4); **txanda errepikatzea** (5)

alde bat errepikatzen (6); **aldiz errepikatzen** (15); **aldiz errepikatzen den** (4); **aski errepikatzen** (6); **askotan errepikatzen** (11); **askotan errepikatzen den** (4); **bat errepikatzen** (21); **batzuk errepikatzen** (4); **bera errepikatzen** (37); **bera errepikatzen da** (7); **bera errepikatzen dute** (4); **bera errepikatzen zuen** (5); **berak errepikatzen** (9); **berbera errepikatzen** (7); **berberak errepikatzen** (7); **berriro errepikatzen** (51); **berriro errepikatzen da** (5); **berriro errepikatzen du** (4); **berriro errepikatzen zuen** (6); **berriz errepikatzen** (38); **berriz errepikatzen den** (5); **besterik errepikatzen** (9); **beti errepikatzen** (11); **bezala errepikatzen** (4); **bider errepikatzen** (5); **dela errepikatzen** (7); **dira errepikatzen** (6); **egunero errepikatzen** (6); **ere errepikatzen** (7); **errepikatzen ahal** (6); **errepikatzen ari** (54); **errepikatzen ari da** (6); **errepikatzen ari den** (5); **errepikatzen ari dira** (7); **errepikatzen ari zen** (4); **errepikatzen bada** (6); **errepikatzen badira** (4); **errepikatzen badu** (5); **errepikatzen da** (52); **errepikatzen dela** (7); **errepikatzen den** (54); **errepikatzen den leloa** (4); **errepikatzen dena** (10); **errepikatzen dio** (7); **errepikatzen diot** (5); **errepikatzen dira** (17); **errepikatzen direla** (9); **errepikatzen diren** (22); **errepikatzen direnak** (5); **errepikatzen ditu** (19); **errepikatzen dituzte** (11); **errepikatzen dituzten** (7); **errepikatzen du** (60); **errepikatzen du behin** (4); **errepikatzen duela** (4); **errepikatzen duen** (14); **errepikatzen dut** (10); **errepikatzen dute** (25); **errepikatzen duten** (12); **errepikatzen dutena** (5); **errepikatzen dutenak** (7); **errepikatzen eta** (6); **errepikatzen ez** (7); **errepikatzen hasi** (8); **errepikatzen nion** (9); **errepikatzen nion neure** (5); **errepikatzen nuen** (20); **errepikatzen nuen neure** (5); **errepikatzen omen** (6); **errepikatzen omen zuen** (5); **errepikatzen saiatu** (4); **errepikatzen saiatuko** (10); **errepikatzen saiatuko da** (5); **errepikatzen saiatzen** (5); **errepikatzen zen** (22); **errepikatzen zidan** (17); **errepikatzen zigun** (5); **errepikatzen zion** (19); **errepikatzen zion bere** (4); **errepikatzen ziren** (15); **errepikatzen zituen** (27); **errepikatzen zituztela** (4); **errepikatzen zuela** (11); **errepikatzen zuen** (129); **errepikatzen zuen behin** (7); **errepikatzen zuena** (5); **errepikatzen zuten** (25); **eta berriro errepikatzen** (46); **eta berriz errepikatzen** (36); **eta errepikatzen** (28); **etengabe errepikatzen** (22); **ez dira errepikatzen** (4); **ez errepikatzen** (9); **gabe errepikatzen** (6); **gauza bera errepikatzen** (11); **gauzak errepikatzen** (5); **gehien errepikatzen** (9); **hala errepikatzen** (6); **historia errepikatzen** (6); **hitz errepikatzen** (4); **hitzak errepikatzen** (8); **honela errepikatzen** (4); **hori errepikatzen** (12); **hori errepikatzen zuen** (4); **horixe errepikatzen** (4); **izena errepikatzen** (6); **lelo bera errepikatzen** (4); **maiz errepikatzen** (4); **nuela errepikatzen** (4); **sarri errepikatzen** (7); **sarritan errepikatzen** (6); **urte errepikatzen** (5); **urtero errepikatzen** (8); **zela errepikatzen** (4); **zer errepikatzen** (4)

---

errepikatzaile 1 *izond* errepikatzen dena.

Gainera, originalean, lehenago kontatutakoa behin baino gehiagotan errepikatzen da, beste bati esaten ari zaiola aitzakitzat hartuz; horrelako zati **errepikatzaileak** ere kendu edo oso laburturik utzi ditut, irakurle gaztearen aringarri. Juan Kruz Igerabide

Bien arteko zehaztasunak ematen du gakoa edo non daukan honek bere koxka: Bai *arra* eta bai *arre,* biak darabiltzate usu baxenabartarrek, latineko *re* **errepikatzaile** hori adierazteko. Pello Zabala

• **2** *izond/iz* berriro huts egiten duena.

Larriagoak behar dute izan nazioko hiritar baten aurkako arrazoiak atzerritar baten aurkakoak baino, eta lehenengo aldiz akusaturiko baten aurkakoak, **errepikatzailearenak** baino. Juan Martin Elexpuru

3 *izond/iz* ikasturte bat berriz egiten duena.

Biak azkeneko urtean dabiltza, baina mozkotea **errepikatzailea** da. Anjel Lertxundi

Ez nintzen aulkiberoa, baina **errepikatzailea** ere ez. Aitor Arana

Gure eskolako ikaskide **errepikatzaile** batek esan zion maisuari, bere ustez, poesia oso gaizki zegoela. Pello Lizarralde

Azterketa batzuk egin behar zituzten ikasle **errepikatzaileak** izango ginela. Bernardo Atxaga

Bi-hiru egun baizik ez zituen gurekin, **errepikatzailearen** estigma kopetan landaturik zuela. Aingeru Epaltza

Gure buruzagiak, Veleno **errepikatzaileak**, legea urratuz, sartzea lortu zuen, gauza haiek egitera joateko nahikoa altua zela iruditu baitzitzaien. Pello Lizarralde

«Aurten **errepikatzaileek** ere kurtsoa gainditukо dute», dio Jose Ramon Soroizek. Berria - Kultura

Azken horiek lan handiagoa egin behar izan dute **errepikatzaileen** mailara iristeko, guk ezagutzen baikenuen ikasgaia aurreko urtetik. Berria - Kultura

Nire klasean eztabaida asko zegoenez emakumeen hankarteaz, eta bazegoenez **errepikatzaile** bat ikusia zuena eta espezial deskribatzen zuena, niri horrelako jakin-mina sortu zitzaidan. Pello Lizarralde

Ni ezjakina nintzen eta **errepikatzaileari** galdetzen nion ea seme batek bere ama estal zezakeen arriskuan jarri gabe. Pello Lizarralde

Hala ere, ez geneukan batere presarik ikasgai haiek gainditzeko, eta sasiestudiante **errepikatzaile** nekaezin bilakatuta geunden. Jon Arretxe

Eurak oraindino estudianteak dira, **errepikatzaile** nekaezin horietarikoak. Jon Arretxe

4

Berau, Mi-n-h prestatzen jardun zuten berrehun eta berrogeita hamar baino gehiago tanaitetarik (hau da, **"errepikatzaile"**, hots, ahozko Legearen irakasle edo maisu tradizionalistak) azkena izan zen. Xabier Kintana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
> **veleno errepikatzaileak** (4)

---

errepikatze 1 *iz* berriro egitea; berriro esatea.

Errepikatze hau, potoa, arrazoi desberdin askorengatik egin daiteke. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Descartes irakurtzeari ekin nion batez ohartu nintzen **errepikatze** horretaz, nire azkeneko ia obra guztietan dagoen oinarriko kointzidentziaz eta loturaz. Anjel Lertxundi

Jardun hau gauerdian egingo da, eta gero goizean berriz, eta honexen bi **errepikatze** egingo dira mezatakoan eta bezperatakoan; betiere Ama Birjinaren, Semearen eta Aitaren hiru hitzaurreekin bukatuz. Patxi Altuna

Janukovitx Errusiaren aldekoa izanik, Putin hauteskundeak lehenengo txandatik **errepikatzearen** alde azaldu zen ostegunean Kutxmarekin izandako bileraren ostean. Berria - Mundua

Buruzagi berriak galdeketa **errepikatzearen** aldekoak izango diren itxaropena dute askok. Berria - Harian

Ideiarik ez baldin badaukazu, zure kideek kaskoan **errepikatzearen** bortxaz sartu hiruzpalau lelozko ideologia bat baduzu bederen? Itxaro Borda

Forma hori, **errepikatzearen** poderioz eta komunitateak onartu zuelako, hizkuntza mailako gertaera bilakatu zen. Isabel Arrigain

Hamaika aldiz errepikatu duzu, ia ahapeka, **errepikatzearen errepikatzez** ihardespena erdietsiko bazenu bezala. Xabier Montoia

Hitz arrunten bat beti-bat errepikatzea, harik eta hitzaren soinuak, **errepikatzearen** errepikatzeaz, adimenari ideiarik batere adierazten ez zion arte. Koro Navarro

Errepikatzearen errepikatzeaz, formula hori agerian geratzen da, idazketa osatzen duten elementuen azpiko antolaketa berri bat ezarriz. Iñaki Arranz

Etengabean jardun beharrak, eta izenak ez **errepikatze** aldera, pilotaria nondarra den esatera bultzatzen du kazetaria. Iñigo Aranbarri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zinemaren aukera nagusietako bat zela aitortu zuten, zinemak errealitatearen **errepikatze** hutsean geratu nahi ez bazuen behinik behin. Josu Zabaleta

Liburu honen sarreran aipatu ditugu irudiek gizartean duten garrantzia, irudien **errepikatze** itxuraz infinitua, haien zirkulazio oparoa, haien ideologiazko karga, haien eragina. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Liburuek hartzen duten tokiaz gainera, nahitaez hitz egin beharko genuke liburuek sorrarazten dituzten oihartzunen **errepikatze**-efektuaz ere. Anjel Lertxundi

· Ordu- **errepikatze** hori egin beti lau asteetan, gutxi gorabehera, eta norberaren adinari, gogoari eta sasoiari begiratuz, ea urliari bost jardunak egiten laguntzen dion ala gutxiagok. Patxi Altuna

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errepikatzearen errepikatzeaz** (5); **errepikatzearen poderioz** (7)

---

errepikazio *iz* errepikatzea.

Politikaren erretorika oraindik nagusitu ez zen garai hartan, galderak, **errepikazioak** eta sermoien erretorikak berezko dituen gisa horretako baliabideak Laclosek ezin hobeki erabili zituen. Jon Muñoz

Estiloen arteko kontrasteak edo **errepikazioak** efektu bereziak sortzen ditu, eta horretarako Laclosek bikain erabili zuen gutunen hurrenkera edo ordenamendua. Jon Muñoz

Ni ere **errepikaziora** emana naiz batzuetan, ikusiko duzun bezala; saiatzen naiz ordea xehetasunen bitartez salbatzen, eta batez ere erdietsi izanak justifikatzen nau. Jon Muñoz

Emakume dohakabe horri kordea berriz etorri zitzaion, dela iraultza hori naturak soilik sortu zuelako, dela Valmont jauna eta heriotza hitzen **errepikazioen** eraginez, oroitarazi ahal izan baitizkiote eriari aspaldi honetan buruan zerabiltzan ideia bakarrak. Jon Muñoz

-Bi gauza behinik behin ez dituk **errepikazioz** egiten: garrasia eta negarra. Jon Muñoz

Ehizako berokia, zorroa, botak, galtzerdiak, ehizako kapa, azpiko galtza luzeak, **errepikaziozko** eskopeta. Koro Navarro

Hango paper pintatu horiak bi papagaio besarkaturen **errepikazio** etengabea ageri zuen. Matías Múgica

---

errepira *iz ipar* erribera.

Urdazuri bazter hortako **errepirak** begiratuak izan diten. Herria

Ondoan diren **errepiretan** eraiki etxe multzoetako bizitzaileek bete betean jasan behar izaiten dituzte pleitalekuko lantegien kalteak: argi betea gauez, arrabotsa gaueko oren bata arte goizeko bostetan hasi ondoan. Herria

Herriko lur-antolaketa arrunt bermoldatzekoa baitute, ur hegiz Azkaine alderat ateratze hortan, eskualde bat atxikiz **errepira** kondu, bestean eremu zabal bat berexia litake etxe berri egiteko. Herria

---

errepitita ik **errepetita**.

---

erreplika 1 *iz* ihardespena, erantzuna.

Mendebaldeko arazoa maila politikoan konpontzea, Otomandar Inperioa ere Mendebaldeko "monarkia ilustratu" multinazional garaikideen, habsburgotarren danubiar monarkia

bezalakoen, **erreplika** bihurtuz, Pedro Handiak Errusiar Inperioa bihurtu zuen bezala. Iñaki Mendiguren

Danborrada, hain zuzen ere, bufoikeria bat da; XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran, gudaroste atzerritarrek behin eta berriz okupatu baitzuten gure hiria, donostiarrek ikusi behar izan zituzten gudarosteen parada, erretreta, martxa eta desfileen **erreplika** umorezkoa da, karikaturazkoa baino areago. Askoren artean

Ikerketa filosofikoaren jarraipena, eskuarki, arrakontru halabeharrezko baina anagogikoa izan ohi da, izaki beraren eta lagun duen **erreplika** esentziagabe eta joskintzazkoaren artekoa. Xabier Olarra

Eztabaidaren prozedurari dagokionez, talde bakoitzak ordu erdi izango du bere zuzenketa aurkezteko, gero gainotzeko taldeei erantzuteko txanda emango zaie eta, bukatzeko, **erreplika** txanda hasiko da. Berria - Euskal Herria

Horren ildotik, **erreplika** txandan haratago jo zuen, eta, «ausardia» izateko eskatu zion Zapaterori, PPtik aldendu eta negoziazioari ekiteko: «Aurrera egiteko bide bakarra hitzarmena da». Berria - Harian

2 kopia, erreprodukzioa.

Jorge Oteizak, gainera, beharrezko gestio guztiak egiteko ahalordea eman zion, notario aurrean, bere lanaren **erreplikak** edo handitzeak egiteko, betiere bere oniritziarekin. Berria - Kultura

Ekaingo leize-zuloaren **erreplika** egiteko proiektuak abiada hartu du, eta 2007ko martxorako irekitzeko prest egongo da. Berria - Kultura

Erdi Aroko arma baten **erreplika** erabili zuen atea hausteko. Berria - Euskal Herria

Museoan ez dago ia ezer, harri zaharren **erreplikak**. Mikel Hernandez Abaitua

Zezen-plazaren ondoan azken alkateak eraikiarazi zuen metakrilatozko Eiffel dorrearen **erreplika** ikusten dut, hamar bat metro izango ditu, oso itsusia da. Mikel Hernandez Abaitua

Alfa Arte enpresak 2007ko udarako amaitua izango du Ekaingo **erreplikako** eszenografia osagarria. Berria - Kultura

Biak trebetasun berdinaz eginak direnean **erreplika** izaten da bietan baliotsuena, dirudien baino ederragoa dela uste izaten baita. Xabier Olarra

Erreplikaren osagarri gisa, informazio gune bat ere izango da Ekainberrin, gune independente bat. Berria - Kultura

3 seismo baten ondoko lurrikarra.

Seismoaren 70 **erreplika** inguru izan dira Al Hoceiman; horien artean, Richter eskalan 5,2ko indarra zuen lurrikara. Berria - Mundua

Lurrikarak 143 **erreplika** izan zituen egunean. Berria - Mundua

Lurrikarak 2,6 eta 1,9 graduko **erreplikak** ere izan zituen. Berria - Euskal Herria

Heldu den abenduaren 26an izan zen itsasikararen **erreplika** izan zela iritzi diote adituek. Berria - Harian

Azken hamabi egunotan ehun **erreplika** baino gehiago izan dira. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekaingo erreplika (3); **ekaingo erreplikaren** (4); **erreplika bat** (4); **erreplika egiteko** (5); **erreplika inguru** (3); **erreplika inguru izan** (3); **erreplika izan** (4); **eta erreplika** (3); **eta erreplikaren** (3); **kobazuloaren erreplika** (3)

---

erreplikante *iz* izaki artifiziala, gizaki itxurakoa eta gizakiaren jokabideak imitatzen dituena.

Bestalde, janzteko hamaika era ikusi genituen: Goiko Errotako gizonak nobelako Joanes ematen zuen; Beheko Errotako neskak, Blade Runnerreko **erreplikantea**. Lastima, ordea, etorkizunak -orainak, alegia- Blade Runner filmeko euri artean galtzen ziren **erreplikantearen** malko lirikoekin baino, Independence Day eta gisa bereko film apokaliptiko eta profetikoekin zerikusi handiagoa izatea. Bernardo Atxaga

---

erreplikatzaile *iz* erreplikatzen duena.

Eztabaida horren inguruan sortu zen eboluzioa azaltzeko bi izaki teorikoen arteko bereizketa: **erreplikatzailea**, bere burua kopiatzeko gauza den izakia adierazteko, eta elkarrekintzailea, bere ingurunean bizi eta hautespena jasango duen entitatea adierazteko. Askoren artean

---

erreplikatze *iz* erreplika gertatzea.

Hiesaren birusa **erreplikatzea** eragozten dute estatinek. Berria - Gaiak

Odoleko zeluletan hiesaren birusa **erreplikatzea** eragozten dute. Berria - Gaiak

---

erreplikazio *iz* molekula konplexu baten kopia berdin-berdinak ekoiztea.

Zera zen ideia: **erreplikazioa** gobernatuko zuen puntu batean atxikitzea ADNa mintzari. Juan Garzia

ADNaren **erreplikazioa** eta zelula-erdibitzea. Juan Garzia

Zelula-erdibitzearen eta ADNaren **erreplikazioaren** ikerketan nenbilen buru-belarri, kolibaziloa harturik aztergai. Juan Garzia

Urte batzuetatik hona nagusi dabilen ereduaren arabera, ezagutzen dugun itxura hori duen eta ADNa jaun eta jabe den mundu bizi horren aurretik, izan bide zen beste bat, non ARNa baliatzen baitzen hala **erreplikaziorako** nola katalisirako. Juan Garzia

Aipatu ez bada, **erreplikazio** biologikoak mekanikan baliokiderik ez duelako izan da. Irene Aldasoro

Kode genetikoa dezifratzea; geneen **erreplikazio**-prozesua atzematea. Juan Garzia

Kolibaziloaren mutanteak bakartu eta aztertzeari ekin genion; erdibitzea edo/eta **erreplikazioa** matxuraturik zeuzkatenak, alegia. Juan Garzia

---

erreplikoi *iz*

Sydney eta bion artean bagenuen itxuratua, solasaren harian hondarretan marraztuz, **"erreplikoi"** izeneko eredu bat, zelula-erdibitzea eta ADNaren erreplikazioa uztartzeko modua ematen zuena. Juan Garzia

---

errepografia ik **erreprografia**.

---

erreportaia ik **erreportaje**.

---

erreportaje *(orobat **erreportaia** eta **erreportai** g.er.) iz* kazetaritza lana, zerbaiti edo norbaiti buruzko informazioa edo ikerketa duena helburu, prentsan edo telebistan ematen dena.

Idazleak errealitatea ezin du eman den-denean, ez bada **erreportaje** edo kronika batean, baina orduan idazlea kazetari bihurtzen da. Ana Urkiza

Itsasondon, arnas aparatua hondatzen zuena ez zen nikotina, baizik eta harrobiko hautsa, eta gaitz horrek izen jakina du meatzarien kantu, film, **erreportaje** eta txosten

guztietan: silikosia. Xabier Mendiguren Elizegi

Tupustean, egunen joanean Egunkari honetan irakurtzen ditudan emakumeak etorri zitzaizkidan gogora, kazetari zein kolaboratzaile, ezagun zein ezezagun, **erreportajeak** eta artikuluak, argazkiak eta zutabeak. Iñigo Aranbarri

Martak egiten dituen elkarrizketa eta **erreportajeetan** ere mezu hori transmititu behar dela, modaren garrantzia. Xabier Mendiguren Elizegi

Egokiera baliatu nahi zuen Koldok, Azkona Estudioko programa-arduradunak, beste hainbat **erreportaje** ere egiteko. Anjel Lertxundi

Horrexegatik nahi zuen kazetari izan, urruneko herrialdeetara joateko, **erreportajeak** egiteko, eta istilutan sartzeko ere bai, hura ez baitzen makala istilutan sartzeko. Jon Muñoz

Badiat gainera, bertze **erreportaje** bat autobideko zerbitzuguneetan egiten ari diren lapurketez. Aingeru Epaltza

-Vinexpo-ri buruzko **erreportaje** bat prestatu behar nian Bordel inguruko ardo-sotoetan, ahaztu egin al zaik? Anjel Lertxundi

Brooklingo toreatzaile Sidney Franklini buruzko **erreportajea** idatzi nahi du. Edorta Jimenez

Segi dezagun, **erreportajea** ontzea baino zailagoa baita labur bat idaztea. Iñigo Aranbarri

Kezka bakarra dut -kezka deitzerik badago- etxetik irten naizenetik: **erreportajeoi** eman behar diedan formak eta tonuak arduratzen nau. Anjel Lertxundi

Argiki oroitzen naiz Paul Emile Victor-ek Iparrean filmatu zituen Inuit-ez egin **erreportajeez**, edo Aroun Tazieff bulkanologoak munduko sumendi handiez egindakoaz. Ana Urkiza

Erresumako telebistek, jakina, debekatu egin zuten **erreportajearen** emisioa. Iban Zaldua

Argazki batzuk ere atera zituzten **erreportajearen** osagarri: gerrillari jendea mendian. Rafa Egiguren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Orrialde osoa neska baten aurpegiak hartzen du, eta ezkerreko matrailean dator **erreportaje** nagusiaren iragarkia, edertasunari buruzko aholkuak. Pako Aristi

Erdiko orrialdean **erreportaje** polita zekarren. Edorta Jimenez

[...] zioen prentsa espezializatuak Sveni buruz argitaratutako **erreportaje** luze batean. Josetxo Azkona

Urteko **erreportaje** hoberenaren saria irabazi zuen. Fernando Rey

Makrame-erakusketa baten berri ematea zen lehenbizikoa, "Gaur egun" bateko **erreportaje** geza izan zitekeena kameraren mugimendu baldresengatik ez balitz. Xabier Mendiguren Elizegi

23. orrialdean hasi eta 27.ean amaitu, bost orrialdeko **erreportaje** zabala zuen *Euskaldunon Egunkaria*-k berari buruz, Lauaxetari buruz. Juan Luis Zabala

Erreportaje distiratsuenak (ordainduenak) lortzeko erakusten zuen abilezia. Anjel Lertxundi

Batetik, fusilatuen oroimenez eskultura jarriko da; bestetik, Ez zuen lan egiten egunkarientzat, ez zituen **erreportaje** grafikoak egiten, baina gerra edo gatazka zegoen lekuetan ibiltzen zen beti. Berria - Euskal Herria

Urte batzuetatik hona **"erreportaje** politiko militar gorenak" deitzen diren horietan aritzen ziren. Karlos Zabala

Erdiko **erreportajea** maketatzea besterik ez zait falta gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohar horietan hasi zen taxutzen erret familiaren barne-muinei buruzko telebistarako **erreportajea**, bost ordu eta laurdenekoa, munduko telebista gehienetan bi edo are hiru zatitan banatuta eman behar izan zutena. Iban Zaldua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zoritxarreko hondamendi haren gaineko 23 liburu, 146 egunkari zati gordetzen zituen karpeta bat eta gudu-zelaian bertan egindako 4 **erreportaje** liburu. Bego Montorio

Irakurle asko harrituko zuen Italia iparraldeko hainbat hiriei buruzko **erreportaje**-sail honetan Rijeka ere sartu izanak. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bigarren Mundu Gerraren sorrera eta bilakaera ondo segitu ez zuenez, horri buruz idatzitako guztia enkargatzen hasi zen Lisboara, gerra **erreportaje** sotiletatik hasi eta azterketa sakonagoetara. Bego Montorio

Sara hiru astetarako joana zen Nigeriara, munduko hiri handienetakoa bilakatzen ari denari buruzko argazki-**erreportajea** egitera astekari famatu batentzat. Iban Zaldua

Kontrolik ezaz, artikulurik hutsalenak maila gorenetara iristen dira, ikerkuntza **erreportajeen** eta nazioarteko albisteen kaltean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

buruzko erreportaia (15); **buruzko erreportaia bat** (3); **buruzko erreportaiak** (7); **buruzko erreportaje** (13); **buruzko erreportaje bat** (10); **buruzko erreportajea** (10); **buruzko erreportajea argitaratu** (3); **buruzko erreportajeak** (4); **egin erreportaiak** (3); **erreportaia bat** (11); **erreportaia batean** (5); **erreportaia egiten** (3); **erreportaia eta** (8); **erreportaia luze** (4); **erreportaia sorta** (4); **erreportaiak egiteko** (3); **erreportaiak eta** (5); **erreportaiak idazteko** (4); **erreportaje bat** (17); **erreportaje bat egiten** (3); **erreportaje bat ikusi** (4); **erreportaje eta** (4); **erreportaje sail** (4); **erreportajea argitaratu** (3); **erreportajeak egiteko** (3); **eta erreportaia** (9); **eta erreportaiak** (3); **inguruko erreportaia** (5); **zen erreportaia** (3)

buruzko erreportaje (13); **buruzko erreportaje bat** (10); **buruzko erreportajea** (10); **buruzko erreportajea argitaratu** (3); **buruzko erreportajeak** (4); **erreportaje bat** (17); **erreportaje bat egiten** (3); **erreportaje bat ikusi** (4); **erreportaje eta** (4); **erreportaje sail** (4); **erreportajeak egiteko** (3)

---

erreportajegai *iz* erreportaje baterako gaia.

Munduko ezein feriatan ordu pare batez aise egin daitekeen lanaz gainera, ahalik eta **erreportajegai** luzeena zehaztu behar nuen. Anjel Lertxundi

---

erreportalari ik **erreportari**.

---

erreportari *(orobat **erreportalari** g.er.)* **1** *iz* berriak biltzen eta haiei buruz idazten aritzen den kazetaria.

Hola aldizkariko **erreportariak** eta argazkilariak ere han zeuden, haiek beren mikrofono eta grabagailuekin, eta hauek beren argazki-makinekin. Joan Mari Irigoien

Gaur egun, notizia nobedade egiten deneko, teletipoak dantzan ipintzen dira, eta puntuan dugu gertakizunaren larria gure sukaldean, telebistako **erreportariak** medio. Pello Zabala

Heriotza arrunt komun baten xehetasunak ezkutatzera jarritako **erreportariaren** hitz zuhur haiek urdaila nahastu zioten. Irene Aldasoro

Monzon Ertzaintzaren lanen antolaketan zebilen buru-belarri, eta zenbaitetan ematen zuen ez zituela **erreportarien** galderak aditzen. Lutxo Egia

Argazki mordoa egin zuen egun hartan Darren Starling **erreportariak**. Iñigo Aranbarri

Txostenaren arrazoiak aurkezten dituen zatian, Mugarik Gabeko **Erreportariek** 2003ko urrian adierazpen askatasunari buruz argitaratutako txostena aipatzen du. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

René Clair-en *Bihar gertatu zen* filmean, **erreportari** gazte batek fantasma baten ezaguera egiten du, eta haren begiko izatea erdiesten. Juan Garzia

Hendrick jauna, *The Freeman* Journaleko **erreportari** nagusia. Irene Aldasoro

Cinq Colonnes à la une, ene gurasoen eta ene programa gustukoena zen, **erreportari** handien bidez, "zuzenean", irudiaren bidez, urruneko populuen biziak ikusten nituen, hilabeteko lehendabiziko ostiral guztiz. Ana Urkiza

2003ko martxoan *Los Angeles Times*-ek kalera bidali zuen Brian Walski **erreportari** grafikoa. Iñigo Aranbarri

-Hortaz, hauxe da **erreportari** hasberria, kazetari horia. Lopez de Arana

Judith Miller-ek, kazeta horrek duen **erreportari** beterano eta prestigiotsuak, sarritan agertu zituen tesi hori berresten zuten sasi-informazioak lehen orrialdean. Txema Ramirez de la Piscina

Nahiago nuke gerrako **erreportari** izendatuko banindute. Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetan)

-Ene, gerrako **erreportari** -lanpostua emango balidate! Lopez de Arana

Munduan zehar, 15 bat urtez, **erreportalari** -argazkilari bezala ibili ondoren, 1983 urteaz geroztik, piaia guziak utzirik, buru belarri pasioz emana da eskultura eta poesia idatziari. Herria

· Hastapenean argazki **erreportaria** bazen ere, Cartier Bressonen uzta berekoa, aski laster gizakiaren gorputzari interesatu zen, betiere irakurketa poetiko batetik. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
gabeko erreportariak (7); **mugarik gabeko erreportariak** (6)

---

erreposki *adlag ipar* astiro, poliki, geldiro.

Bi urrats egiten ditu, patak kasu eginez altxatuz, lehenik bat, **erreposki** bestea. Michel Oronoz

Gertakari latza kondatu nien, **erreposki**. Daniel Landart

Batzuetan **erreposki** ibili behar ginuen, hain zen beilarien multzoa betea. Michel Oronoz

Azkenean, bide nagusi aldetik, **erreposki** zetorren auto baten burrunba entzun nuen. Daniel Landart

Doi doia, urrunetik bailetorren, gizakume ahots pausatu batentzuten hasten da, **erreposki** mintzatzen ari den ahots grabea. Jose Angel Irigaray

Gizona, orga ttipi batekin kaxak karreatzen kaitik geltokira eta alderantziz, **erreposki**, mekanikoki. Jose Angel Irigaray

Erreposki erreposki ateratzera ausartatzen da, eta noizbait egun guzietako harat honatetan parte hartzen du. Michel Oronoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erreposki erreposki (4)

---

erreposta *iz* ik **errepostu**.

Irakurtua genuen hura ahantzia-edo, ez ongi konprenitua, eta horietan atxematen duzu haren ordaintza edo **erreposta**. Menane Oxandabaratz

---

errepostu *iz ipar* erantzuna.

Nor zira? Zerbaiten beharra baduzia? Paperra atxikazu, kraiona gorde; zure **errepostuaren** beha nago. Marzel Etxehandi

Errepostua izan genuen: ideia ona zela, baina ikusi behar nola obra zitekeen. Marzel Etxehandi

Han berean eman zion **errepostua** eta manatu elizkizunetik landa apezpikutegira jin zedin aferen xuritzera. Xipri Arbelbide

Hamargarrena zen aurten antolatzen zena eta jendeak ederki **errepostu** eman du, aldi bat gehiago erakutsiz bihotz ona. Herria

Burraso gazteeri gai hauetan dituzten duderi **errepostu** emaiteko aholku zenbaitekin, Amikuzeko ikastolak gaualdi hau antolatzen du. Herria

Ez digute **erreposturik** egiten. Marzel Etxehandi

Bere gutunarekin, Bourdenne-ri igortzen dizkio Jauffret apezpikuak Buenos Airesetakoari igorri gutuna eta azken honen **errepostua**. Xipri Arbelbide

Hilabete baten buruan heldu zen **errepostua** Buenos Airesetarik. Xipri Arbelbide

Errepostu xuxenik ez baitzen eman, berriz jende hauek izkirioz galde egin dute abokat baten bidez. Herria

Errepostua ez zuen luzatu, bai bazirela, eta bikario jeneral bat ere. Marzel Etxehandi

Ibiltokian sartu bezain laster hasten naiz Euskal Herriko aire bat xixtukatzen... **erreposturik** ez. Filipe Bidart

Ene **errepostuak** ene bizkar izanen dira bakarrik. Marzel Etxehandi

Errepostu gisa, Lau-ko kapitainaren katolikoek basaki suntsitu Donapaleu hiria eta Eneko de Sponde, Jeanne d'Albret-en aholkulari zuhurra izana, hil, 1594an. Michel Oronoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errepostu eman (3)

---

erreposu *iz* atsedenaldia, pausaldia.

Hegal pibot brasildarrak eskuin oineko behatz lodia minduta du, eta hamar bat eguneko **erreposua** beharko du sasoia berreskuratu ahal izateko. Berria - Kirola

---

erreprehenditu, erreprehendi(tu), erreprehenditzen du *ad* errieta egin, agiraka egin.

-Altxa hortik, ostikoa jotzerik nahi ez baduk...! - **erreprehenditu** zuen aitak berriro. nehoiz ez bezala sutu eta koleratu zitzaidan, eta, aulkitik altxatu, begi ezin basatiago haiek ene begietarat xuxendu, paparretik atxiki eta, ateraino eramaiten ninduela, ezin bortizkiago **erreprehenditu** ninduen: [...]. Joan Mari Irigoien

---

errepresalia *iz* norbaiten eta eskuarki nazio baten aurkako ekintza mendekuzkoa.

Ingelesen Gutun Nagusiak debekatu egiten du gerra izanez gero atzerriko merkatarien salerosgaiak bahitzea edo konfiskatzea, **errepresaliengatik** ez bada. Iñaki Iñurrieta

Poloniako selekzioko jokalariek Alemaniaren kontra protagonizatu zuten balentria, nazien garaian, führerrarengandik galtzeko agindua jaso zutenean, **errepresaliak** izango zituztela-eta osterantzean; baina poloniarrek azkenean irabazi, eta biziarekin ordaindu behar izan zuten adorea eta ausardia. Joan Mari Irigoien

Degrela kapitainak **errepresaliak** hartu zituen, eta hogeita lau ordu baino lehenago beste zazpi gizon zeuden leku berean zarraldo. Bernardo Atxaga

Garabi enpresak hilabeteko epean merkatu azterketa bat egitea onartzen dute, baina aseguru etxeei eskatzen diete 30 egunotan bezeroei eragindako kalteordain eta gastuak bere gain hartzeko eta garabi enpresen aurka **errepresaliarik** ez hartzeko. Berria - Ekonomia

Iparraldea polizia frantses eta espainolez beterik dagoela eta, tregua eten denetik batez ere, errefuxiatuek **errepresaliak** espero dituztela dio nire kontaktuak. Joseba Sarrionandia

Herritar askok ez dituzte hilketak salatzen, **errepresalien** beldur direlako. Berria - Gaiak

Porrokatuak izan diren demokraten aurka ez **errepresaliarik**, ez heriotza zigorrik ez bestelako jazarpenik izango ez dela hitz emango du, zinez. Edorta Jimenez

Garbi zegoen, haren aburuz, nire jarrera **errepresalia** hutsen ondorioa zela. Joxan Elosegi

Nahiz eta konspirazio honek ez zuen ez buru eta ez hanka, **errepresalia** handiak egon ziren, eta Lord Stafford exekutatu egin zuten. Juan Martin Elexpuru

Ez dira inondik ere huskeriak, baina bai gaitz erdi beste toki askotako **errepresalia** ankerren aldean. Xabier Mendiguren Elizegi

Estatuak nazioarteko konkurrentziaren jokoan sartzen badira, sarrera hori zenbait kasutan guztiz zilegizkoa den arren, arrisku handia dago kateko **errepresalia** -neurriak izan daitezen. Koro Navarro

Errepresalia eskubidea da nazioek erabili ohi duten beste lege bat. Juan Martin Elexpuru

Informazio gehiago zabalduko da, **errepresalia** arriskuen beldurretik askatuz joango diren neurrian. Berria - Mundua

---

errepresaliatu 1 *izond/iz* errepresalia jasan duena.

Mugimendu feministako kideek eta gazte **errepresaliatuek** . Berria - Euskal Herria

Gora gure preso, **errepresaliatu** eta errefuxiatuak. Eider Rodriguez

Izan ere, 36ko gerran fusilatu, desagertarazi eta **errepresaliatuei** aitormena erakusteko aurrenekoz egiten den ekitaldia izan baitzen atzokoa. Berria - Euskal Herria

Biktimak dira, baita ere, gatazkaren ondorioz hildako guztiak, **errepresaliatuak** , deportatuak, iheslariak, preso politikoak, horien guztien senideak, eta baita torturatuak izan direnak, mobilizazioetan kolpatu dituztenak edo isunak jaso dituztenak ere. Berria - Euskal Herria

Demokrazia berreskuratzea eta **errepresaliatu** guztien aitortza politikoa. Berria - Euskal Herria

Errepresaliatu izatera behartu gaituzten arrazoiak desagertu behar dira. Berria - Euskal Herria

Senide **errepresaliatu** politiko guztiak etxean izan gabe. Berria - Harian

Oroitarazi nahi dut 1981eko amnistiaz geroztik inoiz ez dela hainbeste preso eta **errepresaliatu** politiko izan Frantziako Estatuan. Berria - Mundua

Euskal **errepresaliatu** politikoen senide izateak elkartzen gaitu. Berria - Euskal Herria

Goiko datuei gehitu agintarien aurrera sinatzera agertu behar zutenak, ondasunak kendu zizkietenak, isunak zituztenak, karguak kendu zizkietenak eta desterratuak eta 50.000 **errepresaliatu** egiten dituzte. Jokin Urain

Errepresaliatuen umeak militar zein zibil frankistei ematen zizkieten, Argentinan halakoa egin aurretik. Berria - Mundua

Iker Sarriegi futbolari ohiak eta Xanti Iparragirre bertsolari eta **errepresaliatu** ohiak. Berria - Euskal Herria

2 (aditzaren era burutu gisa)

Errepresaliatua izan litekeen edonork ihes egin behar du. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errepresaliatu politiko** (3); **errepresaliatu politikoen** (5); **eta errepresaliatu** (4); **eta errepresaliatuen** (3); **euskal errepresaliatu** (4)

---

errepresentagarri *izond* errepresenta daitekeena.

Barneko aldaketa pentsagarria egitearren, denbora barneko sentsuaren forma gisa kanpoko begiespenaren bidez egin behar dugu **errepresentagarria** lerro baten tankeraren bitartez eta barneko aldaketa lerro horren marrazketaren bitartez Errealitatetik ukapenerako igarobide bat da, errealitate bakoitza **errepresentagarria** bihurtzen duena quantum bat den aldetik Ibon Uribarri

---

errepresentamen *iz* errepresentatzeko ahalmena.

Errepresentazioen anizkunkia sentsuzkoa soilik, h[au] d[a], harmena besterik ez den begiespenean eman daiteke, eta begiespen honen forma a priori gure **errepresentamenean** egon daiteke, eta hau subjektua afektatua den era besterik ez da. Ibon Uribarri

Gugan oinarrian apriorizko sentsuen begiespenaren forma jakin bat datzanez gero, **errepresentamenaren** harmenean funtsatzen dena (sentimenean), orduan adimenak berezkotasun gisa barneko sentsua determina dezake apertzepzioaren batasun sintetikoaren arabera errepresentazio jakinen anizkunkiaren bitartez. Ibon Uribarri

---

errepresentant *iz* ordezkaria.

Pinet eta Monestier "Populuaren **Errepresentantek"** eginiko dekretuan, hala irakur daiteke: "Ustaritzco communeko cembait herritar onec eguin dioten dennonciationiaren gainian", eta frantsesez [...]. Iñigo Aranbarri

---

errepresentarazi, errepresentaraz(i), errepresentarazten du *ad* ordezkarazi.

Ideiak, ordea, kategoriak baino askoz urrunago daude errealitate objektibotik; izan ere, ezin da haiek *in concreto* **errepresentaraziko** lituzkeen ezein agerpen aurkitu. Ibon Uribarri

---

errepresentatibo 1 *izond* adierazgarria.

Hautatutako liburuek bete beharreko baldintzak, berriz, sinpleak dira: «euskal literaturan **errepresentatiboak** eta TV movie-ak egiteko egokiak izatea». Berria - Harian

2 ordezkatzen duena.

Baina badut uste Iraken gutxiengoen eskubideak aintzat hartzen dituen gobernu **errepresentatibo** bat ezartzen baduzu, horrek aurrekari ona ezarriko duela Ekialde Hurbilean. Ezkertiar askoren eskandalurako, [N. Berria - Mundua

Bobbiok] Estatuaren doktrina marxistarik ez dagoela adierazi zuen, demokrazia **errepresentatiboaren** eredua besterik ez daukagula (*Zein sozialismo?,* 1976). Berria - Kultura

---

errepresentatu, errepresenta(tu), errepresentatzen **1** du *ad* irudikatu.

Pérez Galdós-ek judua positiboki ere **errepresentatu** du bere nobeletan. Joxe Azurmendi

Aldagai horietako bakoitzak hizkuntza naturaleko perpaus deklaratibo edo baierako sinple baten forma **errepresentatu** nahi du. Askoren artean

Gure ideiak hitzetan **errepresentatzen** ditugu, baita horiek inori helarazteko asmorik ez dugunean ere. Askoren artean

Nire izaera isilak antisocial fama ekarri dit eta Prusiarrak eta biok **errepresentatzen** ditugun paperetan horrekin jokatzen du berak. Harkaitz Cano

Sentsuek Zerbait agertzen den moduan **errepresentatzen** badute, orduan honek bere baitan gauza bat izan behar du, eta sentsuzkoa ez den begiespen baten objektua, h[au d[a], adimenarena, h[au] d[a], sentimenik gabeko ezagutzak ahalgarria izan behar du, eta honek soilik du absolutuki errealitate objektiboa, eta bere bitartez **errepresentatzen** ditugu, hain zuzen, objektuak hauek diren moduan. Ibon Uribarri

Espazioa ez da errepresentazioa baino, eta ondorioz, bertan dagoenak errepresentazioan barnebildua egon behar du, eta espazioan ez dago ezer, bertan errealki **errepresentatua** dena izan ezik. Ibon Uribarri

Barneko sentsuaren anizkuntasun ororen batasun sistematikoa hipostatikoki **errepresentatzeko** ilusio transzendentala. Ibon Uribarri

Erraz imajina daiteke, halaber, biktima horiek, ez laurehun urte, baizik eta zortziehun edo mila urte behar izatea zibilizazio baten aparatu osotik bereizteko -zibilizazio horren kolapsoa eta desintegrazioa arazoaldi batek utzi zituelarik agerian- eta erlijio nagusiek **errepresentaturiko** espezie bereko edo espezie desberdineko beste gizarteren baten marka har dezaten beren bihotzak irekitzeko. Iñaki Mendiguren

Espazioaren modu eta determinazio guztiak a priori **errepresentatu** ahal eta behar dira, baldin eta tankeren adigaiak eta hartuemanak sortu behar badira. Ibon Uribarri

Aldez aurretik pentsatutako batasun sintetiko ahalgarriaren bitartez baino ezin **errepresenta** dezaket batasun analitikoa. Ibon Uribarri

Agerpenaren handitasun hedatuaz erabat abstrai daiteke eta, hala ere, sentsazio soilean une batean 0tik kontzientzia enpiriko jakin batera doan goraketa erregularraren sintesia **errepresenta** daiteke. Ibon Uribarri

Beraz, kanpoko sentsuari dagokionez, hedadura egozten zaion substantzian bere baitan bere barneko sentsu propioaren bitartez kontzientzia izanez **errepresenta** daitezkeen pentsamenduak daude. Ibon Uribarri

Hegaldi askean airea bereizi eta bere kontrajarpena sentitzen duen uso arinak airerik gabeko espazioan hegan hobeto egin ahal izango lukeela **errepresenta** lezake. Ibon Uribarri

Hala eta guztiz ere, *in concreto* **errepresenta** ditzakegu, agerpenetan aplikatzen baditugu; izan ere, bertan dute benetan esperientzia-adigaietarako ekaia, *in concreto* den adimenaren adigai bat besterik ez dena. Ibon Uribarri

Izan ere, orduan barneko begiespenaren forma hori objektuen aurretik, eta beraz, a priori, **errepresenta** daiteke. Ibon Uribarri

Lurçat-ek bere instintoa segitu behar zuen: tapizeria bat beltza osoki egin, edo bonba atomikoaren ondotik datorren elur pozoitua 100 metroko tapizeria beltzean **errepresenta**, jendea ikaraz ihes joan zedin. Berria - Kultura

Sintesi hutsak, orokorki **errepresentatuta**, adimenaren adigai hutsa eskuratzen du. Ibon Uribarri

2 (teatroan) antzeztu.

Keralatik etorrita Natanakairali taldeak poema epikoak **errepresentatuko** ditu. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat errepresentatzen (5); **bezala errepresentatu** (3); **bezala errepresentatu behar** (3); **bezala errepresentatzen** (8); **bitartez errepresentatzen** (6); **ere errepresentatu** (4); **ere errepresentatzen** (3); **errepresentatu ahal** (3); **errepresentatu behar** (10); **errepresentatu ezin** (4); **errepresentatu nahi** (4); **errepresentatzen badut** (4); **errepresentatzen baita** (3); **errepresentatzen baldin** (3); **errepresentatzen baldin bada** (3); **errepresentatzen da** (12); **errepresentatzen dela** (3); **errepresentatzen den** (3); **errepresentatzen dena** (3); **errepresentatzen ditu** (3); **errepresentatzen dituen** (5); **errepresentatzen ditugu** (3); **errepresentatzen ditugun** (3); **errepresentatzen du** (6); **errepresentatzen duen** (6); **errepresentatzen dut** (4); **errepresentatzen duten** (3); **errepresentatzen ez** (3); **gisa errepresentatzen** (13); **gisa errepresentatzen da** (4); **litzateke errepresentatu** (3); **objektu gisa errepresentatzen** (3); **soilik errepresentatzen** (7)

---

errepresentatzaile *izond* errepresentatzen duena.

Bi dira aztertzen dituen auziak: zein da ezagutza zientifiko sinbolikoaren (**errepresentatzailearen**) estatusa, eta nola azaldu teoriaren eta esperientziaren arteko erlazio holista. Askoren artean

Hau, ordea, gauzen indar **errepresentatzailerik** ez denez, baizik indar ezagutzaile osotik at datzanez gero, orduan, gure judizioaren osagaiak atsegina eta ezatseginari, eta beraz, judizio praktikoari lotzen zaizkien heinean, osagai hauek ez dira apriorizko ezagutza hutsez soilik arduratzen den Filosofia transzendentalaren multzokoak. Ibon Uribarri

Dena dela, enpirikoa den oroz (sentsuen zirrarez) hain hutsa izan arren, gure indar **errepresentatzailearen** izaeran bi objektu ezberdintzeko balio du. Ibon Uribarri

---

errepresentatzearren *adlag* errepresentatzeko.

Espazioa eta denbora apriorizko errepresentazioak dira, gugan gure sentsuzko begiespenen formen gisa daudenak, baita objektu erreal batek gure sentsua sentsazio baten bitartez determinatu aurretik egon ere, bera sentsuzko hartueman haien arabera **errepresentatzearren**. Ibon Uribarri

---

errepresentazino ik **errepresentazio**.

---

errepresentazio *(orobat **errepresentatzino** g.er.)* **1** *iz* errepresentatzea.

Errepresentazio hau pentsatze bat da, ez begieste bat. Ibon Uribarri

Honekin ez dut esan nahi **errepresentazio** hauek begiespen enpirikoan halabeharrez elkarri egokitzen direnik, baizik eta apertzepzioaren beharrezko batasunarengatik egokitzen direla elkarri begiespenaren sintesian, h[au] d[a], **errepresentazio** ororen determinazio objektiboaren printzipioaren arabera, hortik ezagutza sor daitekeen heinean. Ibon Uribarri

Itxura batera behintzat, xake taula denboraren **errepresentazio** sinbolikoa dela. Bernardo Atxaga

Adimena beharrezkoa zaigu esperientzia guztietarako eta beren ahalgarritasunerako, eta honek egiten duen lehenengo gauza ez da objektuen **errepresentazioa** nabaria bihurtzea, baizik eta oro harrezko objektu baten **errepresentazioa** ahalbidetzea. Ibon Uribarri

Lehengo demokrazia formalaren kontzeptua eta horri datxezkionak (**errepresentazioa**, zilegitasuna, gehiengoen gobernua edo hiritartasunaren kontzeptua) berrikusi egin behar dira. Askoren artean

Indarkeriaren **errepresentazioan** jazotzen diren paradoxak izango ditu hizpide. Berria - Kultura

Sentimenak guri objektuak eman ahal izateko baldintzak diren apriorizko **errepresentazioak** barnebildu behar dituen heinean, sentimena Filosofia transzendentalari dagokio. Ibon Uribarri

Sentimena errepresentatzeko era nahastutzat besterik ez zuen jotzen, ez **errepresentazioen** iturburu berezitzat; agerpena berbaitango gauza beraren **errepresentaziotzat** jotzen zuen, nahiz adimenaren bidezko ezagutzetik ezberdintzen zuen forma logikoaren arabera, zeren agerpenak analisiaren ohiko gabeziagatik alboko **errepresentazioen** nahasketa jakina baitakar gauzaren adigaira, adimenak baztertzen badakien nahasketa. Ibon Uribarri

Ematen du **errepresentazioa** amaitutzat eman duela. Joseba Sarrionandia

Nigan topa daitezkeen nire izatearen determinazio-oinarri guztiak **errepresentazioak** dira eta **errepresentazioak** diren aldetik beraietatik ezberdintzen den iraunkorkia behar dute, zeinaren arabera **errepresentazio** haien aldakuntza, eta beraz, haiek aldatzen diren denboran dudan izatea ere determinatuak izan daitezkeen. Ibon Uribarri

Espazioa kanpoko begiespen ororen oinarrian datzan apriorizko eta beharrezko **errepresentazioa** da. Ibon Uribarri

Beste era batean, ni neuretzat ez naiz beste bat, **errepresentazioaren** objektu bat, baizik eta neure kontzientziari berehala presente nagokion zerbait, **errepresentazioaren** bitartekotza behar izateke. Askoren artean

Errealitatearen eta bere **errepresentazioaren** arteko zuloaz hausnartzeko, ikuspegiaz eta perspektibaz gogoetatzeko, pentsamenduaren zeregina eta izaera birplanteatzeko. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gauza bera gertatzen da iraungitzearekin; izan ere, honek agerpen batek izateari uzten dion denboraren **errepresentazio** enpirikoa aurresuposatzen baitu. Ibon Uribarri

Nicolas Bataille eta Robert Poinçon-en atelierrek eraiki zuten maisulana, Erdi Aro giristino guztian famatua izan zen Apokalipsiaren **errepresentazio** harrigarria. Berria - Kultura

Errealitateari buruz egiten ditudan **errepresentazio** subjektiboak dira, beste toki eta une batzuetan ezin esan dezakedana libreki adierazteko bidea baita niretzat pintura. Berria - Kultura

Horretaz ulertu beharko dugu ez abstraktuki kontzebituriko **errepresentazio** unibertsala determinazio enpirikoetatik, baizik eta kontzeptualizaturikoaren sorrera eta mostrazioa. Piarres Xarriton

Deskripzioak oholak bezalakoak dira **errepresentazio** globalen uholdean. Ana Urkiza

Bizitzaren **errepresentazio** xume eta ezabagarri hartan. Felipe Juaristi

Orduan adimenak berezkotasun gisa barneko sentsua determina dezake apertzepzioaren batasun sintetikoaren arabera **errepresentazio** jakinen anizkunkiaren bitartez. Ibon Uribarri

Argiketaz (expositio), ordea, zera ulertzen dut: adigai bati dagokionaren **errepresentazio** nabaria (xehea ez izan arren). Ibon Uribarri

Espazioa kanpoko begiespen ororen oinarrian datzan apriorizko eta beharrezko **errepresentazioa** da. Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan)

Hegemoniaren zabalkuntzak **errepresentazio** harremanen orokortzea du aurrebaldintza.Horrela definituta -baina berehala ikusten da zer zaila den bere muga zehatzak finkatzea- ideien historiak kontuan du gizakien artean anonimoki mugitzen den pentsamendu amarrutsu osoa, **errepresentazio** -joko osoa. Joseba Zulaika

Objektu batek **errepresentazio** -gaitasunean duen eragina sentsazioa da, hark afektatzen gaituen heinean. Ibon Uribarri

4 ordezkaritza.

Hemengo irakasleak gero eta gehiago gara, eta, bestetik, Klaustroan **errepresentazio** txikia genuenok boto eskubidea izateak ere eragina izan du. Berria - Euskal Herria

EADren orientazio eta programa politikoa aurkeztuko dute, halaber Europako instituzioetan izango duten **errepresentazioa** eta Europako Gazte Demokratak (EDP Youth) izeneko taldea. Berria - Euskal Herria

Alderdien Legeak ematen dion abantailaz eta gain- **errepresentazioaz** profitatu nahian jarraitzen duela EAJk, bakeari eta egoera politiko berri bati ateak ireki beharrean. Berria - Euskal Herria

5 ordezko gisa aritzen den pertsona multzoa.

Manifestazioan bazegoen Franja de Ponent (katalaneraz mintzatzen den Aragoiko lurraldea) taldeko **errepresentazioa** ere, lehen aldiz hartu du parte Bartzelonako irailaren 11ko ekitaldietan. Berria - Mundua

---

errepresentazional *izond* errepresentazioari dagokiona.

Horri errealismo **errepresentazionala** edo kritikoa deritza. Askoren artean

Errealismo **errepresentazionalaren** tesiaren adar batek, gainera, sentimenak senti daitezkeen gauzen existentziaren egiaren lekuko direla dio, gauza horiek une orotan ez sentitu arren. Askoren artean

Hein batean, teoria zientifiko jakin baten helburua da hori, neurriaren teoria **errepresentazionalarena**, alegia. Askoren artean

---

errepresentazionalismo *iz*

Paradigma orokor horrek hainbat forma hartu ditu (**errepresentazionalismoa**, konexionismoa...) gogoaren arkitektura zein den argi ez dagoelako. Askoren artean

---

errepresentazionismo *iz* ezagueraren teoria, dioena buruak ez dituela objektuak antzematen, baizik eta horien errepresentazio mentalak.

Haatik, fenomenismoaren eta **errepresentazionismoaren** aurrean hirugarren aukera bat har dezakegu kontuan, errealismo zuzena alegia. Askoren artean

Eszeptikoa ez den alternatiba **errepresentazionismoa** da: nire sentimen-datuek, beretatik abiatuz lorturiko gainerako usteekin batera, nire gogotik kanpo dauden objektu materialen errepresentazioa osatzen dute. Askoren artean

Haatik, kualitate horien artean -zuritasuna, adibidez-, inork iradokitzen al du bere kausa zerbait independente izan behar dela -liburua bera-, **errepresentazionismoak** dioen bezala? Horrela dirudi, sentimen-datuen esperientzia zuzena azken hitza dela esaten ez badugu behintzat; hau da, ez baldin baditugu objektuak arbuiatzen. Askoren artean

---

errepresentazionista *izond/iz* errepresentazionismoarena, errepresentazionismoari dagokiona.

Esan bezala, Locke izan zen tesi **errepresentazionista** gogorren defendatu zuena. Askoren artean

Hautemate kasu arrunt batean -ni nire gelan, adibidez, liburuz inguraturik, konputagailua mahai gainean, ohea, etab.-, abiapuntua ez da nire esperientzia zuzena -sentimen-datuennaa- ondoren mundu materialari buruzko usteak ondorioztatzeko, **errepresentazionistek** esan bezala. Askoren artean

---

errepresibo *izond* errepresioarena, errepresioari dagokiona.

Militante gisa saiatzea merezi duela iruditzen zaizu; erabateko subertsioan bizi, instituzio politiko eta **errepresiboekin** hautsi, kapitalismoaren ezaugarri moral eta ideologikoei aurre egin, sistema patriarkala desegin... Rafa Egiguren

Gobernuak ezingo baitu arazoa konpondu bide **errepresibo** eta militarrarekin. Berria - Mundua

Ertzaintzari buruzko barne-eztabaida batean erakunde **errepresibo** baten ordez detektibe sare profesionala sortzea proposatu omen zuen. Joxean Agirre

Izan ere, auskalo noiztik datorren politika **errepresiboa** salatzen dute. Iñigo Aranbarri

Guardia Zibilaren kasernak hor daude; horiek izan dira Ibon Meñika atxilotu dutenak eta une hauetan hura torturatzen aritu daitezke inpunitatezko gune **errepresiboan**. Berria - Euskal Herria

Ahalmena, potentzia edo boterea erakustea bere gorputz **errepresibo** edo aparatu oldarkorrarekin, gauza izatea (sujetu gisa noski, baina, okerrenean jarrita, baita besteak egin dezakeen antzezpenaren objetu gisa ere). Iñaki Segurola

Ondoko asteko indar **errepresiboen** sarekada bortitzaren bahetik libraturiko bakarra zen hargatik. Itxaro Borda

Noizbehinka indar **errepresiboek** beraiek, anitzetan itzaltzen ez jakin arren, pizten zituzten lastozko txaboletan suak. Itxaro Borda

Euskal Herriko gatazka konpontzeko proposamenak mahai gainean jartzen ari diren unean polizi operazioak egin dituztela salatu zuen LABek eta horrelako eraso **errepresiboak** arbuiatu zituen. Berria - Euskal Herria

Kanpaina **errepresibo** horiek ez dute ezertarako balio, ez badoaz kanpaina informatiboekin lagunduta. Berria - Gaiak

Batasunak, hain zuzen ere, «aktibitate politikoa baldintzatzen duten aktibitate **errepresibo** guztiak bertan behera uzteko» eskatu zuen atzo. Berria - Harian

Bertako zein kanpoko segurtasun indarren ekinbide **errepresiboa** indargabetzea; hasteko, errepide kontrolak eta hainbat herri eta eskualdetako presentzia itogarria bukatzea. Berria - Euskal Herria

Espainiako Estatuak «estrategia **errepresibo** osoa» indarrean duela. Berria - Euskal Herria

Gaur gaurkoz eta zoritxarrez ikusten duguna da areagotu egiten ari direla ildo **errepresiboa**, eta bestalde, eztabaida politikoa ukatu edo atzeratu egin nahi dutela. Berria - Euskal Herria

2005. urteko balantze **errepresiboa** aurkeztu zuen atzo Askatasunak. Berria - Euskal Herria

Disketxe batzuek pirateriaren kontrako neurri **errepresiboak** eskatzen dituzte; guk, aldiz, kontrakoa nahi dugu: informazioa ematea eta kantuak eskaintzea. Berria - Kultura

Gatazkaren konponbiderako ekarpena egiten denean, Estatuak bere makinaria **errepresiboa** gogortu egiten du. Berria - Euskal Herria

"Antolamendu **errepresiboa** eta sistema bera desegitea du helburu, nahiz eta orain arte propaganda gisa besterik ez den erabili, sistemaren aginduetara dauden instituzioei eta botere politikoari mozorroa kentzeko. Rafa Egiguren

Kaleratzeok VWko zuzendaritzak daraman «politika guztiz **errepresiboaren**» ondorioa da. Berria - Ekonomia

Politika ultra **errepresiboa** indarrean dago oraindik Une historikoak desberdinak izaten dira, ziklo hedonistagoak eta **errepresiboagoak** daude. Berria - Mundua

Hitzak erran-nahi orokorretik aldenduz, aldatzen dira: atentatua ekintza bilakatzen da, gure nahikundeak bertan errespetatzen ez dituena kalitzekoa den etsaia, **errepresiboa** delako. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

balantze errepresiboa (4); **balantze errepresiboa aurkeztu** (3); **bide errepresiboa** (4); **errepresibo bezala** (3); **errepresibo eta** (4); **errepresibo guztiak** (3); **errepresiboa eta** (3); **errepresiboak eta** (3); **ildo errepresiboa** (5); **indar errepresibo** (4); **jarrera errepresiboa** (8); **neurri errepresiboak** (6); **politika errepresibo** (3); **politika errepresiboa** (4)

---

errepresiboki *iz* modu errepresiboan.

Euskal Herrian uneotan ez dago baldintza demokratikorik, jarduera politikoari judizialki, **errepresiboki** erasotzen bazaio, legea jarduera politikoa trabatzeko, baldintzatzeko eta erasotzeko erabili nahi bada Berria - Euskal Herria

---

errepresio 1 *iz* erreprimitzea; erreprimitzearen ondorioa.

Errepresioa, autorrepresioa, kontrola, autokontrola, lana, kastitatea, menpetasuna, diziplina, dira oinarrizko irizpideak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jarrera horrek lan hezitzailea zaildu egiten du, eta horren aurrean **errepresioa** nagusitzen dela dio: «Edo onartzen duzu edo bestela une oro zigortuko zaitugu».Kartzela, **errepresioa** eta injustizia bere larruan pairatua da Toni Negri. Berria - Harian

Gerra ostean, gailegista militante izaki, Francoren Gobernuaren **errepresioa** nozitzea egokitu zitzaion behin baino gehiagotan. Berria - Kultura

Estatuek gatazkaren aurren **errepresioa** erabiltzen badute, kartzela politika ere halako izango da; errepresiboa. Berria - Euskal Herria

Argi dago **errepresioa** jasaten dugula egunero; gaztetxeak husten dituzte nonahi, baina ni ziur naiz mugimendua indartu eginen dela ekimen honen eskutik. Berria - Harian

Errepresioa gustatzen zitzaien, sadikoak ziren, komisaldegietako txakurren antzekoak. Jokin Urain

Geure kontzientziazioan, **errepresioa** izan da zutabe nagusienetakoa. Hasier Etxeberria

Hori ikusita, ordea, azpimarratu zuen Espainia eta Frantziaren erantzuna **errepresioa** areagotzea izan zela: «Gazte mugimenduek beti izan dute erronka bikoitza: alde batetik, **errepresioari** aurre egitea eta, bestetik, gazteen aldeko borroka aurrera eramatea». Berria - Euskal Herria

Frantziak **errepresioa** gogortu duela salatu du Askatasunak. Berria - Euskal Herria

Esperientziak argi uzten du **errepresioan** eta debekuan oinarritutako legeek porrot egiten dutela. Berria - Euskal Herria

Turkiak kurduen aurka hartutako neurriez ere aritu zen: «**Errepresioan**, ukapenean eta hilketetan oinarritutako politikak bidegabekeria, pobrezia eta miseria eragin ditu». Berria - Mundua

Zuek, tortura eta **errepresioaren** biktima ez izateko zuen etxeetatik ihes egin duzuenek, [...]. Berria - Euskal Herria

Errepresioaren bideak ezin du ito gizartearen gehiengoaren sostengua duen eskakizuna. Berria - Euskal Herria

Errepresioaren oldarrak bortitz jotzen zuen. Jokin Urain

Herri Taldeak-eko zonbaitzuk deliberatzen dute **errepresioaren** kontrako talde permanente baten egitea: EKB (**Errepresioaren** Kontrako Batzordea) sortzen da. Herria

Bretainiako **Errepresioaren** Aurkako Koordinakundeak adierazi zuenez, Paskal Laizek ezingo du aurrerantzean behar bezala oinez ibili, presondegiko egonaldiak nabarmen egin dio kalte haren osasunari. Berria - Mundua

Anarkistak dira, batik bat, orduko **errepresioaren** zuzeneko helburu. Jokin Urain

Belgikak, Alemaniak, Britainia Handiak eta Portugalek afrikarren aurka egin zuten **errepresioa** ikaragarria izan zen. Pello Salaburu

Gero, bizitzak, **errepresioak** berak, borrokaren dinamikak, eraman gintuen hasieran pentsatuta ez genituen beste bide batzuk jorratzera. Berria - Kultura

Ezabatu, ez dira inoiz ezabatzen, eta bihur daitezke berriro lehen mailara (erreprimitu denaren bihurrera), **errepresioak** huts egiten baldin badu. Josu Zabaleta

Kontrako norabidean abiatzen bada emaitza zein izango den badaki: **errepresiozko** politikari eutsi nahi badio, espetxean eta kalean erantzuna jasoko du. Berria - Euskal Herria

Hori, zuzenean zerbitzu militarrean bezala gertatzen ez denean, non araudia **errepresiozko** diziplina bat disimulatzeko baliatzen baita. Juan Garzia

Urteotan jasandako **errepresio** eta injustiziak zehatz-mehatz kontatu dituzte. Joxerra Garzia

Ez du dinamita erabili, egia da, baina Anarkismoaren **Errepresiorako** eginiko legearen 1ø Artikuluan dator tipifikatua bere delitua. Koldo Izagirre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Errepresio handia pairatzen zuen herriak. Itxaro Borda

Astelehenetik Iruñeko Alde Zaharreko karriketan izan den «**errepresio** latza» salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Militarrek berriz ere erakutsi zuten errazago egiten dela **errepresio** zuzena hiritarren kontra, ongi prestatutako armada baten kontra baino. Pello Salaburu

Ikasleek jasan zuten **errepresio** gogorrak haserrea piztu zuen biztanleriaren gehiengoan eta helduen parte hartzea areagotu zuen. Berria - Mundua

Berrogeita hamar bat urterekin ihes egin behar izan zuen handik, jeneralen **errepresio** bortitzenen garaian, eta Trieste, "hainbat kultura, hizkuntza eta erlijioen arragoa" hautatu zuen etxetzat: "ez nekien noiz arte, arbolek bakarrik baitute sustrai premia". Anjel Lertxundi

Mendeetako **errepresio** basatiaren biktimak gara eta biktima bikoitzak gainera, ilunpeetarik erabat kudeatuak, gidatuak eta, zergatik ez, manipulatuak garelako gu eta gure kultura elkarteak. Itxaro Borda

Estatu aurreratu eta teknokratikoen **errepresio** itsuak euskaldun den guztia kateztatzen duela deiadar egiten dugu. Itxaro Borda

Sadek **errepresio** sexualaren kontra jotzen du, eta honen euskarri den erlijioaren kontra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

«**Errepresio** poliziala» gogor salatu dute ehunka lagunek Bilbon. Berria - Euskal Herria

Arrazoimen horrek, berak ez du historiarik, ez dago klase baldintza ideologikoen edo **errepresio** freudianoen baldintzen pean: purua eta garbia da, lehen Jainkooa bezala. Joxe Azurmendi

Hori badaezpadako **errepresioa** aplikatzea da. Berria - Harian

Sekulako **errepresioa** egongo zuan, urte askoan. Iban Zaldua

Ezker abertzalearen kontrako erabateko **errepresioaren** garaiaren hasiera izan zen dei hura. Berria - Kirola

Hispanitate horren izenean, Euskal Herriak izugarrizko **errepresioa** eta ukazioa jasan ditu eta hori guztiz iraingarria da euskaldunontzat. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jakina, gauza sibilinoagorik ere asma dezakete: Estatuaren **errepresio**-bideak ezezagunak bezain ugariak dira, eta terribleak, zein baino zein. Karlos Linazasoro

Jasanezina egiten zaie eta horregatik datoz **errepresio** kolpe bortitzak. Berria - Euskal Herria

Errepresio eta ukapen garaia hesteko eta garai berria hasteko denbora jina da. Berria - Euskal Herria

Askatasunak, «azken bi asteetan 25 euskal herritarren atxiloketak ekarri dituen Euskal Herriak jasaten duen **errepresio** egoera» gogor salatu eta atxilotuak askatzeko exijitu zuen bere aldetik. Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuari «Euskal Herriaren aurkako ukazio eta **errepresio** politikan tematzea» egotzi zion. Berria - Euskal Herria

Kapitainaren heriotza **errepresio** kanpaina baten aitzakia ezin egokiagoa izan zen. Iñigo Aranbarri

Mohammed VI.aren bisitak **errepresio** uholde bat eragin duela adierazi du, bestetik, Khalil Sidi Mohamed ministroak. Berria - Mundua

Erantzuna ezin da izan Estatuak nahi duen **errepresio** logikan sartzea, kontrakoa baizik. Berria - Harian

PSOEk **errepresio** estrategia bazter utzi behar du bakea lortu nahi badu. Berria - Harian

Bev **errepresio**-aparatuaren zati dela uste duzu? Oskar Arana

Zokoraketa eta **errepresio** neurrien bidez. Xabier Arregi

Freudek zioen izaera inkontzienteko **errepresio** faktore batek baldintzaten dituela bai informazioa errekuperatzeko mekanismoak eta bai ahanzturarenak. Berria - Gaiak

Borroka urteak, **errepresio** urteak. Pablo Sastre

Estatuak bere **errepresio** -indarraren azalpen nagusia egiten duelakoan, inpotentzia besterik ez du azaltzen. Joseba Zulaika

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Epaiketak, ilegalizazioak, manifestazio **errepresioa** , atxiloketak, torturak eta beste hainbat prozedura eramaten dira aurrera. Berria - Harian

Heziketa sexualak kanpo **errepresiotik** barne **errepresiorako** bidea zabaltzen du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

· "Euskal Herri Langilearen gaineko zanpaketa" izeneko txostenak ekintza-**errepresio** -ekintzaren estrategiari buruzko azterketa luze bat zekarren, eta ardatz horretan egokitzen zuen biolentzia iraultzailearen auzia. Rafa Egiguren

5 (pertsonalizatuta)

Nolaz eta tortura eta beste hainbat abusu ere ez diren desagertu, Ezinezkok eta **Errepresiok** herri txiki honetan bizitzen jarraitzen dute, eta jadanik ez dakigu oso ondo nola jokatu beharko genukeen ertz horietan ez eta gainerako leku guztietan gaudenok. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako errepresioa (9); **bretainiako errepresioaren** (4); **bretainiako errepresioaren aurkako** (3); **carb errepresioaren** (4); **carb errepresioaren kontrako** (3); **daraman errepresio** (3); **du errepresioaren** (3); **duen errepresio** (4); **duen errepresioa** (6); **edo errepresio** (3); **erantzuna errepresioa** (3); **errepresio bideak** (3); **errepresio bortitza** (4); **errepresio estrategia** (5); **errepresio eta** (13); **errepresio horrek** (3); **errepresio politika** (4); **errepresio politikoa** (5); **errepresioa areagotu** (4); **errepresioa areagotzea** (6); **errepresioa ere** (3); **errepresioa eta** (16); **errepresioa ez** (18); **errepresioa ez da** (15); **errepresioa gogortu** (3); **errepresioa izan** (6); **errepresioa izan da** (3); **errepresioa salatu** (3); **errepresioa salatzen** (5); **errepresioak ez** (6); **errepresioak ez** (6); **errepresioak ez duela** (3); **errepresioak ez duela** (3); **errepresioaren aurkako** (18); **errepresioaren aurkako batzordeak** (3); **errepresioaren bidea** (8); **errepresioaren bideak** (4); **errepresioaren bidetik** (3); **errepresioaren bidez** (4); **errepresioaren eta** (4); **errepresioaren kontrako** (15); **errepresioaren kontrako batzordeak** (4); **errepresioaren kontrako bretainiako** (3); **errepresioari aurre** (3); **errepresioari stop** (3); **errepresiorik ez** (14); **errepresiorik ez lelopean** (5); **estatuen errepresioaren** (3); **eta errepresio** (13); **eta errepresio politikoa** (3); **eta errepresioa** (21); **eta errepresioak** (3); **eta errepresioak** (3); **eta errepresioaren** (12); **eta errepresioari** (3); **kontrako errepresioa** (6)

---

errepresore *izond* erreprimitzen duena.

Elementu **errepresoreen** kontrako zigor ekintza batean. Iñaki Iñurrieta

Saudi Arabiako, Kuwaiteko, Egiptoko, Jordaniako eta beste herrialde batzuetako erregimen **errepresoreei** AEBek ematen dieten babesa kentzea; eta musulmanen energia baliabideak mantentzea eta haiek prezio altuetan saltzea. Berria - Harian

---

erreprimiezin *izond* ezin erreprimituzkoa.

Hasteko, kolpe latz haren eraginez, ataxia sendaezin bat, zeinak "erregalo modura ekarri baitzidan gizon egiten nauen zer horri, barkatu, dale-fuego eragiteko behar **erreprimiezin** bat, behar lotsagarri bat". Karlos Linazasoro

Neurekin daramadan buztana ez dela nirea, beltz gizagaixo batena baizik, eta hark kutsatu zidala danbolinari eragin eta eragin ibiltzeko joera itsusi **erreprimiezina** ? Karlos Linazasoro

---

erreprimitu, erreprimi(tu), erreprimitzen **1** du *ad* zerbait adierazi edo garatu dadin eragotzi edo galarazi, eskuarki indarkeriaz baliatuz.

Hori izan zen lehenengo gobernu demokratikoa, baina hasieran gizarte mailako demokrazia bultzatu nahian hasi bazen ere, gero lagunarteko gobernua bilakatu zen, komunistak **erreprimitzen** zituena, eta hemen gogor egin zitzaion. Pako Aristi

Beldurraren eraginez **erreprimitzen** du legeak, eta beldurrak makurtzen eta onbideratzen du zekenen gogoa. Imanol Unzurrunzaga

Irri bat **erreprimitu** zenuen, **erreprimitzen** ari zinela erakutsiz. Eider Rodriguez

XIX. mendean bulkadak **erreprimitzea** zen garrantzitsuena, eta agertzen ziren arazoak horrek eraginak ziren; egun, guztiz kontrakoa da. Berria - Harian

Zer artista klase ote zen galdetzeko irrika **erreprimitu** zuen Mentxuk. Josu Landa

Gizonak gogorrak direla esan digute; badakitela sentimenduak **erreprimitzen** eta horiek kontrolatzen. Berria - Gaiak

Sentipen mingarriak **erreprimitzen** edo haietatik urruntzen ari ote zen, egiten nuen neure artean. Xabier Olarra

Zenbat eta gutxiago **erreprimitu** erlijioak, hainbat gehiago **erreprimitu** behar dute lege zibilek. Iñaki Iñurrieta

-Galdua nauk! - **erreprimitu** ezin izan zuen izuzko oihua irten zitzaion ondarrutarrari euskaraz. Anjel Lertxundi

Mugimendu gaizto hori gaitzetsi eta **erreprimitu** ondoren, nahimena gauza tenporaletatik apartatu behar dugula eta betiereko ongiaren gozamenera bideratu. Imanol Unzurrunzaga

Batzuetan zaila da jakiten zenbateraino edo noraino **erreprimitu** behar duen batek bere izaera zenbaiti atsegin gertatu ahal izateko. Ramon Saizarbitoria

Erreprimitu egiten duzu zeure burua. Xabier Mendiguren Elizegi

Erreforma horiek demokraziarako trantsizioan egin zirela, aspaldian **erreprimituriko** eskari sozialak kaleratzen ari zirenean hain zuzen. Koro Navarro

Bigarren maila hau energia psikiko primarioa, errealitate-printzipioaren aginduetara, egituratzeari, kontrolatzeari eta, behar izanez gero, **erreprimitzeari** dagokiona da. Josu Zabaleta

Bazituen ez itzaltzeko moduko oroitzapen bizi-biziak, eta haietako batzuk, baldin eta (psikologikoki) posible izan balitz, **erreprimitzeko** bezain mingarriak izango ziren, dudarik gabe. Xabier Olarra

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Leonardo homosexual **erreprimitua** omen zen, edo sublimatua, hobeto esateko, afektibitatez amari atxikia. Josu Zabaleta

Arropa aproposez nabarmendutako alderdi kilikariak atseginez eskertzen badizkiozu, obseso zikina zu; eta ezikusiarena egiten badiezu, marikoi **erreprimitua** edo auskalo? Patziku Perurena

Amodio **erreprimituak** askoz hobeki argitzen baitu amodioaren fenomenoa, amodio esperimentatuak baino. Patziku Perurena

Bberen umiliazioaren mendekua une egokiagotarako utziko balute bezala egiten zuten, mehatxu **erreprimitua** . Josu Zabaleta

Lobulu frontalean lesio larria jasandako gaixo bat izan nuen neronek, eta oroitzapenik **erreprimituenak** -berak egindako hilketa baten oroitzapenak- lesio hark "askatu" egin zizkion, eta bere kontzientzia izutura bultzatu. Xabier Olarra

-Denak igualak zarete: **erreprimitu** hutsak -eta fotoak egiten segitzen du. Xabier Mendiguren Elizegi

Bagenekien euskaldunok **erreprimitu** samarrak ginela sexuaren arloan, baina egia esateko, ez genuen inola ere espero jendea hain-hain biziotsua izatea. Jon Arretxe

3 da *ad*

Maketatu eta gero ere hainbat aldaketa egiten ditut, beti ikusten baitut zer hobetu eta ezin naiz **erreprimitu** ... Ana Urkiza

"Erakusteko" ordez "muturretik pasatu" izan zen burura etorri zaion lehena, baina **erreprimitu** egin zen. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erreprimitu behar (3)

---

erreprimitzaile *izond* erreprimitzen duena.

Erlijioa ez dela motibo **erreprimitzailea** esatea, beti ez duelako erreprimitzen, zera esatea da, lege zibilak ere ez direla motibo **erreprimitzailea** . Iñaki Iñurrieta

Printzipioa da erreprimituta dagoen erlijio oro **erreprimitzaile** bihurtzen dela. Iñaki Iñurrieta

erreproba *iz* bigarren proba.

Urduri nago proba eta **erreproba** horiei guztiei begira, baina, beste alde batetik, lasaitu egiten nau hori ikusteak. Xabier Olarra

Hangar ondoko alde bikeztatura eramaten du eta, han, motorra martxan jarri aurretik probak, **erreprobak**, eta erreprobaondokoak egiten ditu. Xabier Olarra

erreprobaondoko *iz adkor* erreprobaren ondokoa.

Hangar ondoko alde bikeztatura eramaten du eta, han, motorra martxan jarri aurretik probak, **erreprobak**, eta **erreprobaondokoak** egiten ditu. Xabier Olarra

erreproduktibo *izond* erreprodukzioarena, erreprodukzioari dagokiona.

Sexuak ere produktiboa izan behar du, **"erreproduktiboa"**, alegia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

erreproduktore *iz* erreproduzitzen duena.

Windows sistema eregilearekin zabaltzen duten Media Player **erreproduktore** multimedia, esaterako, tinko defendatu zuen atzo. Berria - Gaiak

Nagusitasunaz abusatzea leporatzen dio, eta, horregatik, konpetentziako enpresei Windows sistema eragileko kodeen berri emateko eskatzen dio, eta sistema eragilean ez derrigorrez Media Player **erreproduktore** multimedia jartzeko. Berria - Gaiak

erreprodukzio *(orobat **erreproduzio** g.er.)* **1** *iz* erreproduzitzea.

Errealitatearen **erreprodukzio** bat izan baino lehen [...] argiak leku eta une jakin batean duen egoeraren erregistro bat da argazkia. Josu Zabaleta

Inoiz ikusi dudan alderik handiena egin zait **erreprodukzioen** eta orijinalen artekoa. Anjel Lertxundi

Ez, ez da benetakoa, benetakoaren argazkitik abiatuta egindako **erreprodukzio** bat da. Berria - Kultura

Ideiak erregela ematen du eta idealak bere aldetik halako kasuetan **erreprodukzioaren** determinazio osoaren jatorrizko irudi gisa balio du. Ibon Uribarri

Gero konturatu zen koadroaren ondo-ondoan, ezkerrean, Sorollari buruzko liburuak zeudela, hogei bat, informazio-orriak, argazkiak, beste koadro batzuen **erreprodukzioak**, laminetan. Unai Elorriaga

Matisseren **erreprodukzio** bat dago ohearen aurreko paretan zintzilikatuta. Mikel Hernandez Abaitua

Picassoren koadro ospetsuaren **erreprodukzio** bat. Bernardo Atxaga

Durerok ere iritzi berbera adierazi zuen beste hitz batzuekin, esanez bere xedea "ximur eta zaintxorik txikienak ere" agerian jarriko zituen **erreproduzioa** zela, sendagileentzat beraientzat ere baliagarri izango zena. Bernardo Atxaga

Bertsolaritza da -eta honetan datza bere ekarpena eta bere muga ere- inolako serieko **erreprodukziotan** oinarritzen ez diren jendaurreko kultur-adierazpen gutxietako bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zinema telebistan ikusten da gaur egun, pintura aspaldi samarretik argazki bidezko **erreprodukzioetan** ikusten den bezala. Josu Zabaleta

Zinematografiazko **erreprodukzioaren** bidez bere kalitate morala handitzen zaion gauzen, izakien eta arimen alderdi oro esango dut dela fotogenikoa. Josu Zabaleta

Picassoren 11 **erreprodukzio** bidali behar dituzu 25ean -50 x 2,30ekoak- galeriako existentziak banatzeko. Ramon Etxezarreta

Egiptoarrek batuketa eta kenketa irudikatzeko erabiltzen zituzten hieroglifikoen **erreprodukzioak** erakutsirik. Jon Muñoz

Windows sistema operatibotik Windows Media Player multimedia **erreprodukziorako** programa kentzea. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erreprodukzio hutsa da. Bere azken urteetako jarduera aurreko lanen **erreprodukzio** klonikora mugatzen zen, besterik ez zitzaion-eta bururatzen. Patxi Iturritegi

Arne Jacobsen (1902-1971) arkitektoaren marrazkien **erreprodukzio** fotografikoak. Berria - Kultura

Une akustikoak eta zaratatsuak, klasizismoa eta esperimentazioa nahastu zituen taldeak, diskoetako detailez beteriko soinuaren **erreprodukzio** fidela lortuz. Berria - Kultura

Borreroak James Ensor-en **erreprodukzio** bikainez dauka hornitua bulegoa. Karlos Linazasoro

Hainbat artista eta eskultoreri buruz idatzi dudana azken urteotan bildu dut liburuki oso eder eta luxuzko batean, **erreprodukzio** zoragarriekin. Berria - Kultura

Hormetariko batean **erreprodukzio** kaskar bat zegoen, emakume gazte baten marrazkia ageri zuena, hegal eta guzti, banpiro-saguzar bat antzo. Mirentxu Larrañaga

Kolorezko **erreprodukzio** bat zen, trenbide-pasagune bat ageri zuena. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan)

Behialako garai batean nire erosteko ahalmena zuhurki administratzen zekien erosle irizpideduna nintzela amestu banuen ere, orain dena zen diferente, eta makina bat galderak galarazten zidaten loa: hiru edo lau **erreprodukzio**-buru? Jon Alonso

Arne Jacobsenen marrazkien argazki **erreprodukzioak** ikusgai. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erreprodukzio bat** (8); **erreprodukzioaren bidez** (3); **zinematografiazko erreprodukzioaren** (3); **zinematografiazko erreprodukzioaren bidez** (3)

erreproduzio ik **erreprodukzio**.

erreproduzitu, erreproduzi(tu), erreproduzitzen du *ad* erreprodukzioa egin.

Jaio, **erreproduzitu** eta hil. Askoren artean

Posible da odol-hodien itzal hautemangarriak erretinan **erreproduzitzea**. Irene Aldasoro

Enuntziatu bat berdina izan daiteke ahoskatua, txartel batean inprimatua edo magnetofono batean **erreproduzitua**. Xabier Arregi

Korronteok, egoki anplifikatuta, bozgorailuetatik irteten dira jatorrizko soinua **erreproduzituz**. Irene Aldasoro

Frantses eta espainiar Estatuen zapalkuntzak euskal izateari hilzoriko galerak ekarri bazizkion, Euskal Herriaren irtenbideak ez du nahitaez izan behar haien moduko Estatu menderatzaile hilotza **erreproduzitzea**. Joseba Zulaika

Ikusi dugu enuntziatuen ordenak deribazio arkeologikoaren arabera ez duela **erreproduzitzen** derrigor jarraitasunen ordena. Xabier Arregi

erreproduzitzaile *iz* erreproduzitzen duen tresna.

Bati mp3 **erreproduzitzailea** ebatsi zioten, eta besteari sakelako telefonoa. Berria - Euskal Herria

Baditu ingurua arakatzen duten orientazio- eta nabigazio-sistema landuak ere: 3D kamera bat eta hi-fi soinu **erreproduzitzaile** estereofoniko bat, besteak beste. Irene Aldasoro

erreproduzitze *iz* erreprodukzioa egitea.

Nora doa teknika eta nora arte ederrak? zer da Walter Benjamin-en jatorrizko aura **erreproduzitze** teknikoaren garaian? Askoren artean

erreprografia *(orobat **errepografia**) iz* dokumentuak mekanikoki erreproduzitzea, eskuarki fotokopiez.

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, **erreprografia** eta trataera informatikoa barne direla. Patxi Altuna

Irargik «apustu gogorra» egin du garapen teknologikoaren alde, eta zentroaren jarduera guztiz mekanizatua egoteaz gain, 1996tik **errepografia** zerbitzua eskaintzen du, informazio dena CD-Rometan edo mikrofilmetan digitalizatzeko. Berria - Harian

erreprotxatu, erreprotxa(tu), erreprotxatzen du *ad* aurpegiratu, erantzuki egin.

Erreprotxatu edo salatu ez direla normetan edo holako, laguntza egiteko partez. Herria

-Baina... hori ezinezkoa da -**erreprotxatu** nion xalo-. Aritz Gorrotxategi

Haatik hor, Hugok Elizari **erreprotxatzen** deio Jinkoari ez aski fidel izatea. Herria

Egia ote denez **erreprotxatzen** zaion egitate hori. Herria

erreprotxe *iz* erantzukia. ik **erreprotxu**.

"Nahiago dut miradorean." "Hantxe, orduan." "Gogoratzen zara kafetegia non dagoen, David? Badakizu, aurrena aparkalekua, eta miradorera iritsitakoan eskuinetara." Aurreneko **erreprotxea** zen. Bernardo Atxaga

erreprotxu *iz* erantzukia. ik **erreprotxe**.

Herritar hoieri egiten ahal litzaiekeen **erreprotxu** bakarra ez ote litake xoil-xoilik bertsulariaren hau: [...]. Herria

Ez zuen bere maitalearen **erreprotxuzko** behakoa gurutzatu nahi. Elena Touyarou

Ihauteria-kari etxez etxe eskale zabiltzanek kantatzen ohi zuten "ez zabiltzala ederrez ez eta ere beharrez bainan usaia xaharraren ustez **erreprotxu** beldurrez!". Herria

Hala dute partida salbatu, merezimendurekin, 36etaraino joanez eta ez dute gaizoek **erreprotxurik** egun hortako. Herria

Horietaz diote ONU ko Nazione Elkartuen 15 jujeek **erreprotxu** egiten Israeli (Ariel Sharoni), erranez berexkuntzaren harresia egitea dela hori. Herria

Beren gisako errefera bota diote hauk aldiz Aita Sainduari, **erreprotxu** eginez hunek ere aski zituela delako preserbagailuak onartzea edo ez kondenatzea. Herria

errepublika **1** *iz* agintaritza eta boterea pertsona bakar baten eskuetan ez dauden, eta Estatuaren buruzagitza hauteskunde bidez hautatzen den gobernu era; era honetan gobernatzen den Estatua.

Bien bitartean ez dugu jakingo ea Monarkia baino **Errepublika** hobe den, Katolizismoa baino Protestantismoa den hobea, banakoen jabegoa ona ala txarra den. Josu Zabaleta

Convention Nationale izeneko Asanblada berriak erregetzaren behin betiko suntsitzea erabaki zuen eta **Errepublika** proklamatu. Elena Touyarou

Kontu jakina da Tomas Morok ere poetarik gabeko **errepublika** baten gisa irudikatu zuela Utopia. Anjel Lertxundi

1870eko gerraren aurka azaldu zen, eta ez zuten epaitegira eraman, Sedango porrotaren ondotik Frantzian II. Inperioa bukatu eta III. **Errepublika** aldarrikatu zutelako. Karlos Zabala

POUM zeritzan alderdian sartu zen, ezker muturrekoekin; frankistek **errepublika** suntsitu zutelarik, ez zen geratu alderdi haren aztarrenik ere. Juan Kruz Igerabide

-Ba al dakizu zer den hau? **Errepublika** izatetik erreinu izatera pasatzen garela bermatzen duen agiria. Felipe Juaristi

Errepublika gizakiena denean, familia ez da agindupeko menpekotasuna, itunpekoa baizik. Juan Martin Elexpuru

Greziako **errepublika** guztiek toleratu zuten suizidioa; legegileek aurreikusitako gaia zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erlijio katolikoa hobeto doakiola monarkia bati, eta protestantea hobeto doakiola **errepublika** bati. Iñaki Iñurrieta

Eragiketa haren xedea **errepublikak** hiritarrei zor ziena kitatzea zen, ez hiritarrek elkarri zor ziotena kitatzea. Iñaki Iñurrieta

Horrelaxe jardun dute merkataritzan Tiro, Kartago, Atenas, Marseilla, Florentzia, Venezia eta Holandako **errepublikek**. Iñaki Iñurrieta

Errepubliketan, ohiturek aratz izan behar baitute, sasikumeak monarkietan baino gorrotatuagoak dira. Iñaki Iñurrieta

Spanish Earth odoltsua den horretan, Brihuega aldean hain zuzen, Nazioarteko Brigadak ez dira **Errepublikaren** aldeko indar bakarrak. Edorta Jimenez

Poliziak bazekien zelula kriminal bat ari zela osatzen Molinaoko basatzan, Angelita Kastoriadis-en desguazean, **Errepublikaren** aurka oldartzeko. Koldo Izagirre

Eta hori frantsesa delakotz **errepublikaren** hizkuntza, frantsesa delakotz erakaskuntzaren hizkuntza. Herria

Hor ezarria da frantsesa dela **errepublikaren** mintzaira. Herria

Errepublikaren Gobernuaren agindupeko destruktorea. Berria - Harian

Pasaporte zaharrak, frantses **errepublikaren** enbaxadako matrikulazio karta, hegazkin txartel erabiliak, [...]. Ramuntxo Etxeberri

Haien atzetik, Tomeo Xaharra sartu zen, Hirusta ezizenez ezagunagoa, **errepublikako** bandera eskuan, berdea eta gorria kolorez. Felipe Juaristi

Lau gizon haiek baino ez ziren geratu, ondoan **Errepublikaren** bandera eta Azañaren koadroa zutela. Jon Maia

Errepublikaren bandera balkoiko beste aldean zegoen. Edorta Jimenez

Errepublikako gobernuak, suprefetek eta Frantzia izkinako gainerako funtzionarioek matxinatuei pasatzen uzten zieten. Koro Navarro

Horretarako, hainbat gutun idatzi dizkio Serenissimari, Veneziako **Errepublikako** buruari. Anjel Lertxundi

Giscard d'Estaing zen **Errepublikako** presidenta, Jakes Haundia lehen ministro eta armak saltzen zizkioten Saddam Hussein adiskideari. Herria

Pompidouk, **Errepublikako** presidente guztiek bezala, elefante baten oroimena zuen, eta errinozero baten amorrua. Juan Garzia

Abokatu hau **Errepublikako** Fiskal Nagusiaren laguna da, eta harengana joan zen. Pako Aristi

Errepublikako Lehendakariaren harrera ospakizunetan. Josu Zabaleta

Ivan Klima Txekiar **Errepublikako** idazlea aritu zen, hain justu, Kafkaren eta Borgesen lanaren gainean. Berria - Euskal Herria

Espainiar II. **Errepublikako** agintaldi labur eta amoltsuko gertakizunik odoltsuena izango zen hura. Jon Maia

Moldaviako **Errepublikako** hiriburua.Testuinguru honetan Estatu Batuetako Enbaxada gai da Kubako **Errepublikako** goi-seguritatekoari Hemingwayri buruzko eskutitz horretan dioena, eta besterik ere, agintzeko. Edorta Jimenez

Texasko **Errepublikako** Konstituzioak argi uzten zuen hainbat puntutan gizon zuriaren gorentasuna zuela bere ardatzetako bat. Berria - Kultura

Gero Irlanda **Errepublikako** himnoa eta gero errugbiak Irlandar guziak biltzen dituena. Herria

Errepublikari botoa eman ziola, hori seguru. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Errepublika utopikoaren mugak eta **errepublika** historikoarenak ez datoz inoiz bat, hori da kontua, eta bien arteko eremu zabal lanbrotsu hori jorratu nahi du letren

errepublikak. Anjel Lertxundi

Alemaniako **Errepublika** Demokratiko ohia. Koro Navarro

Kongoko **Errepublika** Demokratikoaren ekialdea. Berria - Mundua

Segidan helarazi zigun eguneko albistea: Tolosako Udalak **"Errepublika** Federala" aldarrikatu berria zuela. Txillardegi

Euren bizitzek eta heriotzek Bosniako **errepublika** serbiarraren oinarriak sendotu dituzte. Berria - Harian

Esan zidanez, 1946an, Apirilaren 1ean, erreferendum batez Irango **Errepublika** Islamikoa aldarrikatu zuten. Berria - Mundua

Iraneko **Errepublika** Kurdua erori zenean, gure buruzagia, Mustafa Barzani jenerala, azkenera arte aritu zen borrokan irandarren kontra, amore eman gabe. Juan Kruz Igerabide

Horrela jaio zen lehenbiziko **errepublika** islamdarra. Pello Salaburu

Bbotikekiko eresistentea den tuberkulosia «arazo larria» bilakatu da Sobietar **Errepublika** Sozialisten Batasuna izandako herrialdeetan. Berria - Gaiak

Ez zait gustatzen **Errepublika** burges, bekaitz eta neo-kapitalista hau. Itxaro Borda

Errepublika handiegi bat ezin da despotismotik libratu, **errepublika** federal txikietan zatitzen eta elkartzen ez bada. Juan Martin Elexpuru

Errepublika latinoamerikarretan ez zegoen nonbait Espainiari sinpatia larregirik arestian. Joxe Azurmendi

Errepublika txikietan, edota aipatu ditugun instituzio berezietan, izan daitezke magistratuei hiritarren haurren ezkontzak ikuskatzeko gaitasuna -berez aitarena dena- ematen dieten legeak. Iñaki Iñurrieta

Printzipio honek gidatu zituen legegileak erromatar **errepublika** suntsitu eta gero. Iñaki Iñurrieta

Orain arte, sobietar **errepublika** ohiei merkeago saltzen zien gasa Errusiak. Berria - Harian

Saharar **Errepublika** Demokratikoaren Lagunen Elkartea. Berria - Harian

Aurrean, hau ez da gutxietsi behar, espainiar **"errepublika"** zeukan Don Carlosek; berori, tarteka, eta Pi i Margall-en eraginez, **"errepublika** federala" ere bihurtzeko abian. Txillardegi

Euskal Herriaren zatia hain da txikia Frantziar **Errepublikaren** barruan. Edorta Jimenez

Dominikar **Errepublikan** 1947an egin ziren hauteskundeak Galindezek bere liburuan gogor eta zorrotz kritikatu zituen. Edorta Jimenez

Afrikan, aldiz, Tunisia eta Maroko jazarri zitzaizkion hasteko IV. **Errepublikari**. Piarres Xarriton

3 (hitz elkartuetan)

Errepublika garaian, Erroman ez zen beren burua hiltzen zutenak zigortzen zituen legerik. Iñaki Iñurrieta

Bakantzetan izanen dira, beraz, **Errepublika** egunean. Herria

Errepublika eguna iristen zenean denok sorora joaten ginen, egun-pasa. Arantxa Iturbe

Errepublika-urteak ziren. Xabier Mendiguren Elizegi

Hona non, 1989an, uste gabetarik, lehertzen eta zapartatzen den, Berlineko Harresiarekin batean, Sobiet **Errepublika** Sozialisten Batasuna. Piarres Xarriton

· Mendebaldeko kristau-**errepublika** desegitea izan zen, aitasantutzak elkartu eta batuta eduki zuena. Iñaki Mendiguren

4 ***Letren Errepublika***

Klasikoek **Letren Errepublika** deitzen zuten horretan. Anjel Lertxundi

Poeten eremuari **letren errepublika** deitzea otu zitzaionak literaturaren mundua duindu nahi izan zuen errepublika hitzarekin. Anjel Lertxundi

Horregatik, hizpide gaiztoko kontrastez osatutako esapide ironiatsua genuke gaur **letren errepublika** delakoa, eta ez helburu zintzo, lanbide duin eta produktu onuragarriak sortzeko lan egiten duen giza talde baten deitura. Anjel Lertxundi

Idazle-kastaren kaosa, anarkia, anabasa ere adierazten ditu **letren errepublika** espresioak. Anjel Lertxundi

Errepublika utopikoaren mugak eta errepublika historikoarenak ez datoz inoiz bat, hori da kontua, eta bien arteko eremu zabal lanbrotsu hori jorratu nahi du **letren errepublikak**. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adjariako errepublika (3); **afrika erdiko errepublika** (3); **agintari berriek errepublika** (5); **alemaniako errepublika** (14); **alemaniako errepublika demokratikoko** (3); **alemaniako errepublika federalaren** (3); **atzo kongoko errepublika** (3); **baltikoko errepublika** (3); **batasuneko errepublika** (3); **beren errepublika** (3); **berriek errepublika** (5); **berriek errepublika enparantza** (5); **biba errepublika** (5); **bigarren errepublika** (3); **bosniako errepublika** (3); **da errepublika** (6); **den errepublika** (3); **dominikar errepublika** (25); **dominikar errepublika eta** (5); **du errepublika** (4); **duen errepublika** (4); **dute errepublika** (3); **edo errepublika** (4)

errepublika aldarrikatu (11); **errepublika arabiar** (30); **errepublika arabiar demokratikoa** (6); **errepublika arabiar demokratikoak** (3); **errepublika arabiar demokratikoaren** (6); **errepublika arabiar demokratikoko** (13); **errepublika bat** (4); **errepublika batean** (6); **errepublika baten** (4); **errepublika beltza** (5); **errepublika berria** (4); **errepublika besterik** (3); **errepublika bihurtu** (4); **errepublika da** (5); **errepublika demokratikoa** (21); **errepublika demokratikoan** (22); **errepublika demokratikoaren** (11); **errepublika demokratikoaren lagunen** (3); **errepublika demokratikoko** (24); **errepublika demokratikoko presidente** (4); **errepublika demokratikotik** (3); **errepublika eguna** (9); **errepublika egunaren** (6); **errepublika egunaren ohoretan** (4); **errepublika egunean** (16); **errepublika enparantza** (5); **errepublika eta** (18); **errepublika ezarri** (6); **errepublika federal** (4); **errepublika federala** (6); **errepublika federalaren** (8); **errepublika federaleko** (3); **errepublika garaian** (17); **errepublika garaiko** (9); **errepublika greziarra** (3); **errepublika horretan** (4); **errepublika hotela** (3); **errepublika independentea** (3); **errepublika iritsi** (3); **errepublika islamikoa** (6); **errepublika islamikoak** (3); **errepublika islamikoaren** (7); **errepublika islamikoaren buruzagi** (4); **errepublika izateko** (3); **errepublika izateko bidean** (3); **errepublika komunista** (3); **errepublika onartzea** (3); **errepublika serbiarra** (3); **errepublika sobietar** (3); **errepublika sortu** (7); **errepublika sortu berriaren** (3); **errepublika sozialista** (9); **errepublika sozialista sobietarra** (3); **errepublika sozialisten** (12); **errepublika sozialisten batasuna** (6); **errepublika sozialisten batasuneko** (3); **errepublika turkiarra** (12); **errepublika turkiarra aldarrikatu** (3); **errepublika turkiarreko** (9); **errepublika turkiarreko lehen** (3); **errepublika turkiarreko presidente** (3); **errepublika txiki** (3)

espainiako errepublika (6); **espainiako errepublika federalaren** (3); **eta errepublika** (27); **eta kongoko errepublika** (4); **eta txekiar errepublika** (4); **europan euskal errepublika** (3); **euskal errepublika** (16); **euskal errepublika aldarrikatu** (3); **euskal errepublika izateko** (3); **euskal herriko errepublika** (3); **euzkadiko errepublika** (3); **frantses errepublika** (3); **gora errepublika** (8); **herri errepublika** (4); **herriko errepublika** (4); **iparraldeko errepublika** (5); **iparraldeko errepublika turkiarra** (5); **iparraldeko zipreko errepublika** (8); **irango errepublika** (10); **irango errepublika islamikoaren** (4); **irlandako errepublika** (5); **itxkeriako errepublika** (4); **jugoslaviako errepublika** (9); **ko errepublika** (3); **kongoko errepublika** (66); **kongoko errepublika demokratikoa** (15); **kongoko errepublika demokratikoan** (19); **kongoko errepublika demokratikoaren** (4); **kongoko errepublika demokratikoko** (17); **kongoko errepublika demokratikotik** (3); **koreako herri errepublika** (3); **lehen errepublika** (3); **letren errepublika** (5); **saharako errepublika** (27); **saharako errepublika arabiar** (27); **saharar errepublika** (6); **saharar errepublika arabiar** (3); **saharar errepublika demokratikoaren** (3); **sead saharako errepublika** (16); **sead saharar errepublika** (5); **sesb sobietar errepublika** (4); **sobiet batasuneko errepublika** (3); **sobiet errepublika** (3); **sobietar errepublika** (12); **sobietar errepublika sozialisten** (8); **txekiar errepublika** (45); **txekiar errepublika eta** (4); **veneziako errepublika** (4); **zen errepublika** (4); **zipre iparraldeko errepublika** (5); **zipreko errepublika** (38); **zipreko errepublika greziarra** (3); **zipreko errepublika onartzea** (3); **zipreko errepublika turkiarra** (5); **zipreko errepublika turkiarreko** (9); **ziren errepublika** (3); **zuen errepublika** (4); **zuten errepublika** (5)

afrika erdiko errepublikako (6); **chirac errepublikako** (5); **chirac frantziako errepublikako** (4); **dominikar errepublikak** (13); **dominikar errepublikak eta** (3); **dominikar errepublikako** (37); **erdiko errepublikako** (6); **errepublikak bere** (3); **errepublikak eta** (7); **errepublikak ezin** (3); **errepublikako agintariek** (3); **errepublikako bandera** (6); **errepublikako eta** (3); **errepublikako gobernuak** (6); **errepublikako gobernuaren** (3); **errepublikako gobernuari** (3); **errepublikako hiriburua** (3); **errepublikako konstituzioak** (3); **errepublikako lehen** (6); **errepublikako lehen ministroak** (3); **errepublikako lehendakari** (3); **errepublikako lehendakaria** (3); **errepublikako president** (11); **errepublikako presidenta** (4); **errepublikako presidentaren** (5); **errepublikako presidente** (18); **errepublikako presidentea** (11); **errepublikako presidenteak** (16); **errepublikako presidentearen** (3); **errepublikako presidenteari** (3); **espainiako errepublikako** (3); **eta dominikar errepublikak** (6); **eta dominikar errepublikako** (4); **eta errepublikako** (9); **eta txekiar errepublikako** (4); **frantziako errepublikak** (4); **frantziako errepublikako** (11); **frantziako errepublikako presidenteak** (4); **irlandako errepublikako** (8); **irlandako errepublikako lehen** (3); **italiako errepublikako** (5); **jacques chirac errepublikako** (4); **serbiar errepublikako** (5); **txekiar errepublikak** (6); **txekiar errepublikako** (18); **txekiar errepublikako lehen** (3); **zipreko errepublikako** (5)

afrika erdiko errepublikan (3); **bigarren errepublikaren** (3); **da errepublikaren** (5); **dela errepublikaren** (7); **dela errepublikaren mintzaira** (4); **dominikar errepublikan** (32); **dominikar errepublikara** (15); **dominikar errepublikaren** (4); **dominikar errepublikatik** (5); **dute errepublikaren** (3); **edo errepublikaren** (3); **erdiko errepublikan** (3); **errepublikan bizi** (5); **errepublikaren alde** (36); **errepublikaren alde borrokatu** (5); **errepublikaren alde jokatu** (3); **errepublikaren aldeko** (17); **errepublikaren aldekoak** (3); **errepublikaren aldekoek** (4); **errepublikaren aurka** (4); **errepublikaren aurkako** (4); **errepublikaren bandera** (4); **errepublikaren garaian** (8); **errepublikaren garaiko** (3); **errepublikaren gobernuaren** (3); **errepublikaren gobernuaren agindupeko** (3); **errepublikaren hasiera** (3); **errepublikaren hizkuntza** (14); **errepublikaren hizkuntza frantsesa** (5); **errepublikaren kontra** (7); **errepublikaren kontrako** (3); **errepublikaren mintzaira** (4); **errepublikaren urtemuga** (5); **errepublikaren zimendu** (3); **errepublikari eta** (3); **errepublikari traizio** (3); **errepublikari traizio egin** (3); **espainiako errepublikaren** (6); **eta dominikar errepublikan** (6); **eta errepublikaren** (20); **eta errepublikari** (3); **eta txekiar errepublikan** (3); **frantsesa dela errepublikaren** (5); **frantziako errepublikaren** (8); **hirugarren errepublikaren** (3); **ingushetiako errepublikan** (3); **irlandako errepublikan** (3); **irlandako errepublikarekiko** (3); **letren errepublikan** (3); **txekiar errepublikan** (7); **txekiar errepublikaren** (3); **txekiar errepublikari** (7); **txekiar errepublikari eta** (3)

---

errepublikakide *izond/iz*

Eta tiro egiteko baimena eman zitzaionean ere, hori tamala, **errepublikakide** bat fusilatzeko izan zen. Edorta Jimenez

---

errepublikana *izond* emakumeez mintzatuz, errepublikaren aldekoa.

Ama, zu **errepublikana** zara, ezta? Joseba Sarrionandia

---

errepublikanismo *iz* errepublika aldarrikatzen duen dotrina.

Errepublikanismoak eduki zuela alderdi euskaldun eta are euskaltzale bat. Berria - Kultura

Liberalismoaren aurrean ere joera berriak sortu ziren, besteak beste, N. Bobbio, A. Giddens eta J. Habermas-en sozialismo liberala, **errepublikanismo** berria eta demokratismo erradikala hurrenez hurren. Askoren artean

Errepublikanismoaren alderdi euskalduna ezagutzeko. Berria - Kultura

Filosofiari, eguneroko bizitzan, ez zaio galdetzen teoria zientifikoen egituraz, gogoaren eta gorputzaren arteko harremanaz edota **errepublikanismoaren** ezaugarriez. Askoren artean

Gu jabetzen garela hitzarmenak **errepublikanismoaren** eduki iraultzaileak ezabatu nahi dituela kontzetsio batzuk emanez konpromisoen truke. Berria - Mundua

---

errepublikano 1 *izond* errepublikarena, errepublikari dagokiona; errepublikaren aldekoa.

Frantsesek "balio **errepublikanoez"** hitz egiten dute, zerbait ez **errepublikano** egitera doazen oro. Joxe Azurmendi

Bertsolari honek ideia **errepublikanoak** zabaldu zituen bertsoaren bidez, eta horregatik ahanzturaren artxipelagora kondenatu zuten. Berria - Kultura

Frantzia **errepublikano** modernoa versus Espainia elizkoi atzeratua. Koldo Izagirre

Azken urteetan koronel lotinant mailara, hots, Espainia **Errepublikanoan** karrera barik militarrak iritsi zitezkeen eta gradurik gorenera iritsi zen. Edorta Jimenez

Eusko komunistei eta komunista **errepublikano** espainolei espiatzeko kontsigna argi eman zenean -1944 aldera- Euzko Zerbitzuetako askok zerbitzuari uko egin zioten. Edorta Jimenez

Gobernu modurik eraman errazena **errepublikanoa** da, hark hurbiltzen baititu gizakiak gehien beren berdintasun naturalera. Anjel Lertxundi

Mercaer-ek -langile **errepublikano** bat zen- oso modu bitxian azaltzen zion zer izan zen Frantziako Iraultza, eta zer izan ziren Inkisizioaren tormentuak. Josu Zabaleta

Agintari **errepublikanoek** pregoi bidez abisatu zuten, danboliteroak hala kantatu zuen tan tan tatan tana, ezkutatutakoak itzultzeko etxera, inor gordeka harrapatuz gero preso hartuko zutela. Joseba Sarrionandia

Justizia sailburuak Euskal Herrira joateko gonbita egin die Idahoko Justizia ministroari, gobernadoreari, Estatu idazkariari eta alderdi **errepublikano** zein demokratako ordezkariei. Berria - Euskal Herria

Liburua, izengoitiz izenpetua argitaratu zena, *La Voz de Guipúzcoa* egunkari **errepublikanoan** argitaratu zituen tokiko historiako kronika batzuen emaitza zen. Askoren artean

Sinn Feinen estrategiaren bidez Irlanda batzeko aukera dagoela esan du Irlandar Armada **Errepublikanoak**. Berria - Harian

DUPeko buruak IRA Irlandar Armada **Errepublikanoaren** «desarmea» eskatu zuen. Berria - Mundua

Unionistek erakunde armatu **errepublikanoak** arma guztiak uztea exijitzen zuten Ostiral Santuko bake akordioa erabat bete eta agintea banatzeko. Berria - Harian

Goierrin, berriz, guardia zibil talde **errepublikano** batek egin zien aurre Beasaingo tren-geltokian, baina, haiek menderatu eta fusilatu ondoren, arin-arin egin zuten Oria ibaian behera. Xabier Mendiguren Elizegi

Kataluniako Ezker **Errepublikanoa** (ERC). Berria - Euskal Herria

Gobernu sistema: **Errepublikanoa**, federala, demokratikoa eta plurala izango da. Berria - Mundua

2 *izond/iz* ideia errepublikanoak dituena; alderdi errepublikano bateko kidea dena.

Datorren azaroan AEB Ameriketako Estatu Batuetan egingo diren presidentetzarako bozetan egungo presidente George Bush **errepublikanoari** aurre egiteko aurkari nagusia da Kerry. Berria - Mundua

Senatari **errepublikanoek** ere kritikatu zuten Rumsfelden jarrera. Berria - Mundua

Erran dute zenbaitek zer atsegin haundirekin ikusten zuten erregina, nahiz **errepublikanoak** izan. Herria

Errepublikanoek 1886an sortutako euskarazko eta frantsesezko aldizkariaren aurkako erreakzio gisa sortu zen *Eskualduna*, baina luzaz iraun zuen, **errepublikanoenak** ez bezala. Berria - Kultura

Abertzaleak, sozialistak eta **errepublikanoak** elkartu ziren. Tradizionalistak ez ziren agertu. Joseba Sarrionandia

Aitzol, Onaindia, Adarraga, Don Alejandro eta hobietan dauden beste hainbat apaiz eta **errepublikano** kanposantu atarian hil zituzten. Jokin Urain

Hasieran **errepublikanoa** zen eta gero monarkiko egin, Margherita erregina tentel hartaz maitemindu zelako! Fernando Rey

Unionistek eta **errepublikanoek** oso tempo desberdinetan jardun zuten. Berria - Harian

Errepublikanoa zen, mende arteko Donostiako ideia liberalen aldeztailea, eta Unión Artesanaren presidentea izan zen. Askoren artean

Arratsalde batzuetan Andres plazako kafetegira joaten zen, herrian **errepublikanoen** Kasinoaren eta karlisten Kasinoaren musiken artean izaten ziren liskarren berri jakiten zuen. Josu Zabaleta

Gerrako bataila odoltsuenetako bat hasi zen, alde batean komunistak eta bestean **errepublikanoak** eta anarkistak zirelarik. Edorta Jimenez

Horrezkero "Guadalajara ez da Abisinia" kantatuko dute harro **errepublikanoek**. Edorta Jimenez

Britainiar burujabetzaren barruan lan egitea ezinezkoa da benetako **errepublikano** iraultzaileentzat. Berria - Mundua

Errepublikano disidenteen artean, 30 lagun inguru daude espetxeratuta. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi errepublikano (4); **alderdi errepublikanoa** (14); **alderdi errepublikanoak** (22); **alderdi errepublikanoarekin** (5); **alderdi errepublikanoaren** (21); **armada errepublikanoa** (8); **armada errepublikanoak** (26); **armada errepublikanoaren** (12); **armada errepublikanoari** (4); **armatu errepublikanoaak** (4); **buruzagi errepublikanoak** (14); **buruzagi errepublikanoak eta** (3); **buruzagi errepublikanoaren** (3); **bush errepublikanoa** (5); **bush errepublikanoak** (7); **bush errepublikanoari** (7); **bush errepublikanoari aurre** (3); **da errepublikanoen** (5); **die errepublikanoei** (3); **dira errepublikanoen** (3); **disidente errepublikano** (5); **dituzte errepublikanoek** (3); **dute errepublikano** (3); **dute errepublikanoek** (8); **egunkari errepublikanoan** (3); **erakunde errepublikanoak** (3); **errepublikano askok** (3); **errepublikano bat** (4); **errepublikano batek** (4); **errepublikano disidenteak** (6); **errepublikano disidenteen** (3); **errepublikano eta** (12); **errepublikano ezagunen** (4); **errepublikano ezagunen abokatua** (4); **errepublikano guztiak** (3); **errepublikano zein** (4); **errepublikanoa da** (4); **errepublikanoa eta** (8); **errepublikanoa zen** (4); **errepublikanoak beren** (3); **errepublikanoak botoen** (3); **errepublikanoak dira** (5); **errepublikanoak eta** (16); **errepublikanoak eta demokratak** (4); **errepublikanoak ez** (6); **errepublikanoak gobernutik** (4); **errepublikanoaren arabera** (3); **errepublikanoaren eta** (8); **errepublikanoaren eta john** (4); **errepublikanoari aurre** (3); **errepublikanoari aurre egiteko** (3); **errepublikanoari eta** (3); **errepublikanoei eta** (3); **errepublikanoek eta** (6); **errepublikanoek eta demokratek** (3); **errepublikanoek ez** (4); **errepublikanoen alde** (5); **errepublikanoen artean** (6); **errepublikanoen aurkako** (6); **errepublikanoen eta** (5); **errepublikanoen konbentzioa** (3); **errepublikanoen kontrako** (6); **eta errepublikano** (4); **eta errepublikanoak** (7); **eta errepublikanoei** (5); **eta errepublikanoek** (10); **eta errepublikanoen** (16); **fein alderdi errepublikanoak** (5); **george bush errepublikanoa** (5); **george bush errepublikanoak** (5); **george bush errepublikanoari** (4); **hautagai errepublikanoak** (8); **hautagai errepublikanoak botoen** (3); **hautagai errepublikanoaren** (3); **irlandako armada errepublikanoa** (3); **irlandako armada errepublikanoak** (10); **irlandako armada errepublikanoaren** (3); **irlandar armada errepublikanoa** (5); **irlandar armada errepublikanoak** (16); **irlandar armada errepublikanoaren** (9); **irlandar armada errepublikanoari** (3); **mugimendu errepublikanoa** (4); **mugimendu errepublikanoak** (3); **mugimendu errepublikanoan** (5); **mugimendu errepublikanoaren** (3); **mugimendu errepublikanoari** (3); **nola errepublikanoek** (3); **presidente errepublikanoak** (3); **preso errepublikano** (3); **senatari errepublikano** (5); **senatari errepublikanoak** (7); **talde errepublikano** (4); **zein errepublikanoen** (3); **zuen buruzagi errepublikanoak** (5); **zuten errepublikanoek** (4)

---

errepublikanozale *izond* alderdi errepublikanoen aldekoa.

Era berean, lehia bizi-bizia gerta daiteke Arkansasen, tradizionalki **errepublikanozalea** . Berria - Mundua

---

errepublikar *izond/iz* errepublikanoa.

Behingoz denok jakin dezagun milaka langile, baserritar, emakume, apaiz, nazionalista, **errepublikar**, sozialista, anarkista, komunista... haiek nor ziren, zer pentsatzen zuten, nola bizi ziren eta zergatik hil zituzten. Berria - Euskal Herria

Estatu ereduari buruz, berriz, Frantziaren eredua goraipatu du: «Nazionalitateak elkarrekin ibili dira ideia **errepublikar** bakar batekin eta zentro sendo baten borondaterarekin». Berria - Euskal Herria

Errepublikazale sutsua izaki, EEBBtara heldu bezain laster egin zuen lehen gauza Alderdi **Errepublikarrean** izena ematea izan omen zen. Harkaitz Cano

Eskuineko ARENA Aliantza **Errepublikar** Abertzalea eta ezkerreko FMLN Askapen Nazionalerako Farabundo Marti Frontearen artean erabakiko da irabazlea. Berria - Mundua

Aitona Miguel berehala atxilotu zuten beste politiko nazionalista eta **errepublikar** batzuekin batera. Mikel Hernandez Abaitua

Zazpi miliziano zirela, haien artean hiru **errepublikar**, sozialista bat, anarkista bi eta filiazio jakinik gabeko zazpigarren bat. Iban Zaldua

Gauza jakina da lapurretak ausardia, indarra eta trebetasuna pizten dituela, dohainik onuragarrienak gobernu **errepublikar** batentzat. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hilketa izugarrikeria da, baina izugarrikeria beharrezkoa sarri, inoiz ere ez kriminala, toleratu beharrekoa estatu **errepublikar** batean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nolanahikoak direla ere, **errepublikar** edo monarkiazale, gizarte zaharrak abusuz beteak daude. Koldo Izagirre

Zioten euskaldunak **errepublikar** izan zitezkeela, Ameriketan apezpiku guziak **errepublikarrak** zirela, ez zela erregetiarrik han, eta Europako Euskal Herrian ere izaiten ahal zela **errepublikar** ona. Herria

Aristotelesek abortua gomendatzen zuen; eta aberriarenganako adorez eta maitasunez betetako **errepublikar** zahar haiek ez zuten nazio modernoetan aurkitzen den erruki indibidual hau ezagutzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Uste nian gutarra zela eta hala zuan **errepublikar** zorritsu horiekin nahastu zen arte. Lopez de Arana

Diputatu eta **errepublikar** kartsu honek mintzaldi iraultzaile sutsuak idazten zituen, baina hura, eta haren iduriko Danton, Robespierrre eta beste... Elena Touyarou

2 (izenlagun gisa)

Irlandako **errepublikar** mugimenduak bakearen alde erakutsitako «konpromisoa eta kemena» goraipatu zuen Batasuneko bozeramaileak. Berria - Harian

Errepublikar kutsuko hainbat talde saiatu da zinema aretoetan bana ez dezaten. Berria - Kultura

Errepublikar gudariak Bordele eskualdekoak ziren gutiz gehienak. Elena Touyarou

Eta atzera egin behar izan du **errepublikar** osteak; bere 50.000 soldaduak, ehunka zaldiak, eta bere 100etik gorako kanoiak arrapaladan Erribera aldera garraiatuz. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi errepublikarrak (3); **alderdi errepublikarreko** (3); **armada errepublikarra** (4); **armada errepublikarrak** (3); **da gobernu errepublikar** (3); **errepublikar batean** (7); **errepublikarra eta** (3); **eta errepublikar** (5); **eta errepublikarra** (4); **eta errepublikarrek** (3); **gobernu errepublikar** (6); **gobernu errepublikar batean** (3)

---

errepublikartasun *iz* errepublikarra denaren nolakotsuna.

Frantzia Handiaren **Errepublikartasunak** egundokoak esanarazi dizkio bati baino gehiagori egunotan. Hasier Etxeberria

---

errepublikatxo *iz adkor* errepublika xumea.

O'Hara horiek ez dute halakorik eginen, badakite Inglandek beren **errepublikatxoa** kenduko diela txarto portatzen badira... Koldo Izagirre

---

errepublikazale **1** *izond* errepublikaren aldekoa.

Hobbes pentsalari **errepublikazale** egitea, zentzu modernoan, barregarria izango litzateke. Esteban Antxustegi

Mendebaldeko parlamentu monarkiko batean deputatu **errepublikazaleren** bat jartzeak erakundeari itzala ematen dion gisa berean, gizarteko arau nagusiei guti-aski men egitera etorri den giza talde bati ere eder zaio arau horiek beroriek zangopilatzen dituen lagunik izatea bere baitan. Aingeru Epaltza

Xaho gnostiko masoia eta **errepublikazale** laikoa zen. Askoren artean

Imajina al daiteke, etsenpluen liburuetan edo literaturako fikzioan bada ere, errege **errepublikazalerik** ? J.M. Olaizola "Txiliku"

Ofizial **errepublikazale** batek. Jon Muñoz

Aita maisua zuen, bera bezala, maisu aurrerakoia, **errepublikazalea**, *Institución Libre de Enseñanza* erakundearen bultzatzailea. Juan Kruz Igerabide

Sei ale argitaratu zituen *Abuztuaren 14a* aldizkari independente **errepublikazale** eta ausartarenak, bada, kazetari horrek, nola demontre zuen izena? Karlos Zabala

Horiek denak aurrerapausoak izan ziren geroxeago demokrazia **errepublikazalearen** teoria zibilizatua idazteko. Esteban Antxustegi

Espiritu **errepublikazale** eta liberala Donostian indartu egin zen. Askoren artean

Ordutik hona, legearen subiranotasunaren ideia ezinbestekoa da ordena politikoaren eta askatasunaren ikuspegi **errepublikazale** ororentzat. orduan armadak eta mugimendu **errepublikazalearen** buruzagiek agintaritzatik kendu baitzuten. Esteban Antxustegi

Orduan bihurtu zen **errepublikazale** ; errepublikan sartu zen, itxaropenik gabeko neska gazteak komentuan sartzen diren bezala. Karlos Zabala

2 errepublikaren aldeko pertsona.

Errepublikazaleek erre eta bonbaz lehertu zutela zabaldu zuten. Anjel Lertxundi

Gutako inor ez zegoen erregea zerbitzatzeko, **errepublikazaleak** eta iraultzaile ohiak baikinen gehienok. Juan Kruz Igerabide

Alde batean, erregezaleak baitzeuden, eta bestean **errepublikazaleak** . Felipe Juaristi

1851ko abenduko estatu kolpean parte hartu zuen, eta, barne ministro izendaturik, **errepublikazaleak** bortitz zapaldu zituen. Karlos Zabala

Kartzelan diren **errepublikazaleak** aske utziko dituzte. Edorta Jimenez

Errenazimenduko **errepublikazaleek** komunitate politikoa, alegia *politeia*, herritartasun gisa hartu zuten. Esteban Antxustegi

Herriko **errepublikazaleak** nondik nora genbiltzan jakin nahi zuen hark. Koldo Izagirre

Errepublikazale sutsua izaki, EEBBtara heldu bezain laster egin zuen lehen gauza Alderdi Errepublikarrean izena ematea izan omen zen. Harkaitz Cano

Udaletxeko idazkaria zen, **errepublikazale** amorratua. Juan Kruz Igerabide

Xaho gnostiko masoia eta **errepublikazale** laikoa zen. Askoren artean

---

errepublikazaletasun *iz* errepublikarekiko zaletasuna.

Hobbes baino lehenagoko pentsalari errepublikazaleek edo errepublikazale joerakoek bi lege onartzen zituzten, gaur egun **errepublikazaletasun** ororen kredotzat jo daitezkeenak. Esteban Antxustegi

Ez dut ezagutzen **errepublikazaletasunaren** teorikorik, gaur egun askatasuna "mendekotasun eza" gisa ulertzen dutenetatik, Graciánen definizioa aipatzen duenik. Esteban Antxustegi

---

errepus *iz*

Errepus humerikoak. Patziku Perurena

---

errepusta *iz ipar* erantzuna.

Errepusta : ez. Herria

Uste dut **errepusta** aurki daitekela bere gelako pareta batean duen olerki batetan. Herria

Bezperak ondoan denak joan gira proosionean hil herrietarat otoitzean eta koraleko andereek xaramelatzen zituzten kantikeri **errepusta** emanez. Herria

Nahi duenak **errepusta** egor beza gure Ikastolarat. Herria

Galdetu dut eia Scot hau ados zen Euskal Lurralde eskemarekin, eta ez dut **errepusta** garbia izan pundu hortan. Herria

---

erreputa *iz* harridura adierazteko hitza.

Giza gogoaren bitxikeria sinestezinak! Zu sufritzen ari zara, ene laztana, negarrez zaude, eta ni isurtzen ari naiz... A **erreputa** ! Lepoa bihurtuko nizuke, atsegin hori beste batzuentzat laga nahi ez banu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

erreputazio *(orobat **erreputazione**) iz* ospea, entzutea, izen ona.

Langile desatsegin, oldarkor, tematiaren **erreputazioa** lortu zuen ministerioan, eta kasik egunero eragiten zuen liskar edo kalapitaren bat. Patxi Zubizarreta

Hormen artean **erreputazioa** aski irabazia zuen Arronategi txikiak maiz hitz egiten zuen arretari buruz. Lander Garro

Aitona Nikolasek -eta gure aitak ere ez gutiago- etxearen eta etxekoen **erreputazionea** eta izen ona zuen kezka eta ardura nagusi, muinetaraino eta erroetaraino sartua. Joan Mari Irigoien

Hori ere kritikatzen zuen ahizpa beltzaranak, **erreputazio** txarra hartzeko arriskua zuelako. Pello Lizarralde

---

erreputazione ik **erreputazio**.

---

erres *iz* bahia.

Ez da inola ere egoki Erreinuaren oinordeko garenok zeruko ondarearen **erres** den limosnaz lotsatzea. Askoren artean

---

erresaka 1 *iz* olatuek itsasertzean egiten duten atzeranzko higidura.

Eta halako olatu handi batek beti dakar **erresaka** : beldurra. Beldur naiz ez ote didan buruaren atzealdetik helduko eta goratuko, **erresakak** egiten duen bezala. Berria - Harian

2 edari alkoholdun gehiegi edan den egun baten ondoko goizean izaten den ondoeza. ik **biharamon; bestondo**.

Gizaki arruntok biharamuna esaten diogu sentipenen batura honi, edo ajea, edo **erresaka** , edo bestondoa, edo zakurzuria, edo astelehena, asteazkena eta zergatik ez: ostirala. Unai Iturriaga

---

erresalba *iz ipar* erresalbua.

Xinan, ur **erresalba** baten egitera doatzi munduko handiena izanen dena: 18 200 mega watt-eko eletrika indarra eman beharra du urtegi ikaragarri horrek, herri horrentzat. Herria

---

erresalbatu, eresalba(tu), erresalbatzen du *ad ipar* erreserbatu.

Edozoin xehetasunentzat, tel: 06-08-63-05-12 edo: 05-59-25-50-98 edo 06 76 505 854 edo elkartetxetik pasatuz, astelehenetik astezkenerat bereziki tokiak **erresalbatzeko** 30 eurotan edo diru hau xekez bidaliz postaz Elkartetxerat. Herria

---

erresalbu 1 *iz* erreserba, gordekina. ik **erresalba**.

Horiek kontseilatu dakote **erresalbu** batzu egitea lohi eta iratze leku batzutan eta "Camp de César" sailkatzea ingurumen begiratu gisa. Herria

Bavariako **erresalbu** famatu hartara eramaiten omen zituzten, bahitzat. Marzel Etxehandi

Sasoin idorrenean beren uztak agortuak direlarik, behartuak izaiten dira janaria eta gaineratekoak kanpotik ekarraraztea sailtzaileek finkatutako prezio garestian, hauek baidakite behar gorrian direla; horren ordez, emazte horiek behar lituzkete **erresalbuak** erosi, berak oraino eskasean ez direno eta prezioak apal direno. Herria

Eskolako abentura liburuetan hola ikasia zuen, bidaia luze batean abiaturik sekulan galtzen bazen, **erresalbuetarik** xuhurki arizan behar zela, irauteko. Michel Oronoz

Erresalbu hortan panda eri edo kolpatuak artatzen dituzte, berriz libratu aintzin. Herria

CFDT sindikatua biziki arranguratua da RUWELeko **erresalbu** kimiko horiek beren gisa utziak direlako, lantegia zebilelarik hainbeste artatuak zirelarik. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Landareen eta animalien mundua alde batera utzirik, **erresalbu** -gordailuok harrikatz eta petrolio hobietan dautza. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fama du amerikano bankoetan badituela 130 miliun dolar plazatuak bere herri ttipiaren petrolio **erresalbuetarik** . "Mauroen iturria": ur **erresalbu** handi bat da, hamar bat mailako eskaileraren beherean, xirrista batek berritzen duela ura, etengabeko isurketa batean. Herria

7 itsaspekari erruso ziren itsas pazifikoan beren batizkafoan preso gertatuak oxigena **erresalbua** arras xuhurtua bizpahiru egun hartan, hil edo bizi, 190 metra barnatasuneko urpean. Herria

Bidean bazkaldu ondoan izan gira Panda **erresalbuaren** ikusten. Herria

Behako laster bat ohapeari: gure lur-sagar **erresalbu** guzia desagertu da! Marzel Etxehandi

Industriak atxiki du jadanik zuen martxa, baina bi xifre arranguragarri agertu dira: industri lantegiek ez dituzte beren ekoizpen ahalak osoki baliatzen eta ekoizpen

erresalbuak beteago dituzte. Herria

4 erreserba, zuhurtasuna, arreta.

Egia **erresalburik** gabe esateko leialtasuna behar nuela. Ramon Saizarbitoria

Bere burua **erresalburik** gabe eskaini ez ezik, aldi berean erabateko askatasuna ari zitzaion bermatzen. Oskar Arana

Lehenbizikoa baino bidezkoagoa zen; aitortzen zuen (**erresalbu** askoz eta kontu handiz) gure kexua, eta aurrekoak baino aholku ez hain begibistako bat zekarren: [...]. Juan Garzia

Jakina, horretarako frogaren baten aztarna behar du euskarritzat, logikoa den **erresalbuz** hertsapenak, xantaiak eta familiaren aurkako erasoak eragozteko hain zuzen. Ramon Saizarbitoria

---

erreseina *iz* aipamen laburra, eskuarki idatzizkoa.

Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* lanari buruzko azterketarekin eta garai hartan egin nituen hainbat **erreseinekin** eta abar, analisiaren bidean zerbait hausten ari nintzela konturatu nintzen. Ana Urkiza

Liburu berrien **erreseina** laburrak. Berria - Kultura

Zeure lanerako irakurri duzun testuaren -edo horren zati baten- laburpena edo aipamen laburra (**erreseina**). Askoren artean

Muñozek berak lotura estua zuen euskarazko kazetarekin, telebistako filmen **erreseinak** egin baitzituen urte askotan. Berria - Kultura

Kritika eta **erreseinen** atalean, Juan Luis Zabalak egindako 2003ko literatur sorkuntzako liburuen zerrenda eta liburu kritika batzuk datoz. Berria - Kultura

---

erreserba *(orobat **erretserba** g.er.)* **1** *iz* erreserbaturiko gauzen multzoa. ik **erresalbu**.

Praktikan, adibidean ez bezala, bankuek jasotzen dituzten gordailuen ehuneko jakin bati **erreserba** gisa eutsi behar izaten diote beren kutxetan. Iñaki Heras

Gorputzeko atal gehienetan, zehar-konexioak izaten dituzte tarteka auzo-arteriek, **erreserbako** zirkulazio bat beti prest izateko larrialdietarako. Irene Aldasoro

Erreserbako depositua zabaltzeko ordua denez, palankari tira egiten diot. Josu Zabaleta

Dendako **erreserbak** gordeta zeuden biltokia zelakoan. Jon Muñoz

Ogia, gurina, gazta eta sagarrak -neguko **erreserbetako** azkenak, tximurtuak baina onak eta gozoak- lortu zituzten. Agustin Otsoa

"Munduaren birika"ra, noski; "Lurreko oxigeno-**erreserbarik** handien"era, jakina! Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hiru mendetan zehar, 1570 ingurutik 1880ko hamarraldian esklabotasuna erabat deuseztatu zen arte, Afrika beltza, osatzen ari zen mundu osoko ekonomiarentzat, langileen **erreserba** izugarri handi bat baino ez zen izan. Koro Navarro

Politika horren bidez, **Erreserba** Federalak prezio merkeetan birfinantzatzeko aukera ematen zien bankuei. Koro Navarro

Petrolio gordinaren munduko **erreserben** bi heren. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dago **erreserba** -mekanismorik. Irene Aldasoro

Hain toki handia hartzen dute **erreserba** -zerbitzuek eta segurtasun-sistemek, ezen arrazoizkoa baita galdetzea ea posible litzatekeen errendimenduaren eta fidagarritasunaren arteko oreka aldatzea. Irene Aldasoro

Marxisten ustez sistema honek **"erreserba** ejertzitoa" osatu beharra du. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itsasoak elikagai-**erreserba** amaigabeak ditu. Irene Aldasoro

Esprinterrak, epe laburreko energia-**erreserba** erabiliz, orduko 23 miliako abiaduran egin ditzake ehun yarda. Irene Aldasoro

Estatu Batuak izan ziren gerrak suntsitu ez zuen herrialde industrial indartsu bakarra, eta, 1945ean, harenak ziren munduko urre-**erreserben** hiru laurden. Koro Navarro

Bestetik, dibisa eragiketak ere egiten ditu [...] herrialde kideen dibisa **erreserba** ofizialak bere esku baititu. Iñaki Heras

Garai batean zentralizaturik zeuden ekonomien kapital-**erreserbak**, ez periferikoa ez zentrala ez den estatutu berezia ematen diete herrialde komunista ohiei. Koro Navarro

Merkatu horien dolar-eskaintza, alde batetik, Estatu Batuetako erakunde eta enpresetatik zetorren [...]; eta, beste aldetik, munduko gainerako lekuetako banku zentraletatik, hantxe ipintzen baitzituzten dolarretan zeuzkaten truke-**erreserbak**. Koro Navarro

5 irud/hed

Pepponek azkenetan zeukan bere diplomazia-**erreserba**. Koldo Biguri

6 armadaren zatia, jardunean ez dauden militarrak osatua.

-Zu oraindik **erreserbako** ofiziala zara, ez ahaztu hori. Lopez de Arana

7 gordetegia.

Erreserbetako burdinsarea hautsi eta gero. Koldo Biguri

Zergatik daude beren **"erreserban"** barbaroak hain lasai? Iñaki Mendiguren

Beste batzuek [...], batere nabarmendu gabeko bizitza eraman zuten, antropologoen interesgai bihurtuta, giza "zoo" edo **erreserbetan**. Iñaki Mendiguren

8 herabetasuna.

Aitortua zigun behin baino gehiagotan "aspaldi izandako boladarik onena" zela hura berarentzat, ohizko klase partikularren zamarik gabe eta, batez ere, Historia eta Filosofia -bere gai maitatuenak- irakasten, eta poz hori erakusten du inolako **erreserbarik** gabe argazkian. Bernardo Atxaga

9 hoteletako edo ibilgailu publikoetako lekuez mintzatuz, aldez aurretik atxiki.

Hoteleko operadoreari deitu nion osabak kontseilatutako jatetxean **erreserba** egin zezan. Bernardo Atxaga

Egin dizut **erreserba**. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetako erreserba (14); **aebetako erreserba federalak** (7); **aebetako erreserba federaleko** (4); **aebetako erreserben** (3); **alan greenspan erreserba** (10); **arrain erreserben** (3); **batuetako erreserba** (4); **bi erreserba** (3); **bidaia erreserben** (3); **biosfera erreserbaren** (3); **da erreserba** (6); **diru erreserbak** (6); **du erreserba** (8); **du erreserba federalak** (5); **dute erreserba** (3); **erreserba bat** (3); **erreserba batean** (5); **erreserba batera** (3); **erreserba egin** (5); **erreserba egiteko** (5); **erreserba ejertzitoa** (3); **erreserba federala** (6); **erreserba federalak** (47); **erreserba federalak interes** (7); **erreserba federalak puntu** (4); **erreserba federalaren** (22); **erreserba federalaren bilera** (3); **erreserba federalari** (3); **erreserba federaleko** (34); **erreserba federaleko buruak** (7); **erreserba federaleko fed** (3); **erreserba federaleko presidenteak** (9); **erreserba funtsera** (4); **erreserba handiak** (6); **erreserba handienak** (4); **erreserba horiek** (4); **erreserba natural** (4); **erreserbak agortzen** (5); **erreserbak agortzen ari** (5); **erreserbak egiten** (3); **erreserbak handitu** (4); **erreserbak handituko** (3); **erreserbarik egin** (3); **erreserbarik handiena** (3); **erreserbek beste** (3); **erreserben datu** (3); **erreserbetan bizi** (3); **estatu batuetako erreserba** (4); **eta erreserba** (7); **eta erreserbak** (3); **eta petrolio erreserbak** (4); **gas erreserba** (5); **gas erreserbak** (7); **gas erreserben** (3); **greenspan erreserba** (11); **greenspan erreserba federaleko** (11); **lur erreserba** (3); **lur erreserbak** (5); **petrolio erreserba** (8); **petrolio erreserbak** (22); **petrolio erreserbek** (3); **petrolio erreserben** (4); **truke erreserben** (3); **ur erreserba** (4); **ur erreserbak** (3); **zen erreserba** (3)

---

erreserbakide *iz* erreserbako kidea.

Hasieran, **erreserbakide** bezala hartu ninduten. Berria - Kultura

erreserbatu, erreserba(tu), erreserbatzen du *ad* zerbait bereizi, behar denean erabiltzeko.

El Salvadorreko hilerrian mila metro koadroko lur saila **erreserbatzea** erabaki zuen, han musulmanentzako hilerria eraikitzeko. Berria - Harian

Leihatilara hurbildu zen Joseba eta **erreserbaturik** zeuzkan txartelak eskatu zituen. Iñaki Zabaleta

Orain ez litzateke egokia batek bere andregaiari *harpia* esatea... horrelako kunplimendua haren bilobentzat **erreserbatua** da. Xabier Olarra

Europarako nire itsasontzi-txartela ezin izango zidatela **erreserbatu**, non eta ez nintzen, gaueko hamarretarako beranduen dela, hantxe bertan aurkezten, pasaportea aldean neramala. Joxe Austin Arrieta

Abiadura Handiko Tren bat **erreserbatu** dute. Berria - Kirola

Erreserbatutako sarrera ordu horietan jasotzen ez duenak sarrera galduko du. Berria - Kirola

-Zergatik sortzen da 'overbooking'-a?: Jende askok hegazkinetako eserlekua aurrez **erreserbatzen** du, baina horietako askok azkenean ez dute hegaldia hartzen. Berria - Euskal Herria

2 hotel, jatetxe eta kidekoetan erreserba egin.

Mikel Strogoffek lehenengo klaseko bi gela **erreserbatu** zituen, haren lagun gazteak gela osoa izan zezan. Karlos Zabala

Hoteleko gela **erreserbatuta** daukat, baita autoa errentatua ere. Javi Cillero

Alde egin aurretik, Papik dena konponduta zegoela adierazi zigun, **erreserbatuta** geneukala gela, eta panfletoak ere han zeudela jadanik kartoizko kaxetan "apunteak" bailiran. Bernardo Atxaga

Bidaietarako maletaño bat erosi, eta pezuaren emendatzeko harriz bete zuen bai eta gau hartan logela bat **erreserbatu** gobernuaren ikuskatzaileak egon ohi ziren Faures karrikako ostatuan. Elena Touyarou

Aroberri elkartera deitu nuen jarraian, bi tokiren **erreserbatzeko**. Itxaro Borda

Jatetxe japoniar ireki berri batean **erreserbatua** nuen mahaia. Aingeru Epaltza

Izkina batean zegoèn mahai bat zen, nire aita **erreserbatzen** hasi zitzaiona, bezero berriarekin konfiantza hartuz joan zen neurrian. Joan Mari Irigoien

"Lehen hi hintzen gogoratzen hintzena, eta jatetxe garesti batean mahaia **erreserbatzen** huena", aurpegiratu zion. Iban Zaldua

23.000 etxebizitza eraikitzeko lurra **erreserbatuta** dago hiriburuan eta hiriburu ondoko udalerrietan. Berria - Harian

-Bi gela dauzkagu **erreserbatuta**, Natxo Etxaberen izenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Rafak telefonoz **erreserbatutako** mahaian jesarri zirelarik ez zuten denbora asko behar izan jan-edanak erabakitzeko. Josu Landa

3 (era burutua izenondo gisa)

Café Turf-eko gela **erreserbatu** txikian -atea oihal batek gorde eta morroi batek zaintzen zuen- hamaika pertsona zeuden eserita. Anton Garikano

Arratsaldeko lauretan gas-lanparak pizten ziren kafetegi guztietan, kafe-esnegaina zerbitzatzen hasten ziren, militar eta funtzionarioek beren mahai **erreserbatuetan** jarririk zeudela. Xabier Olarra

IAEA Energia Atomikorako Nazioarteko Agentziak Iranen programa nuklearra berriki ikertzen aritu ondoren haren txosten **erreserbatuaren** berri izan dute Ameriketako Estatu Batuek. Berria - Mundua

· Hareatza amaitzen zen tokian, hesiaren gaineko gotorleku **erreserbatu** batean, hainbat jenderen buruak nabarmentzen ziren "Autoridades" letreroaren gainetik. Josu Landa

4 (era burutua izenondo gisa, iritzi eta sentimenak adierazteko uzkurtasuna izendatzeko)

Hortaz, hain **erreserbatua** eta misteriotsua zen norbaitek, derrigor, guztien arreta erakartzen zuen, eta solasaldi guztietako gaia izaten zen. Joanes Urkixo

Bakardadeak **erreserbatua** bihurtu zuen, aldrebesa. Anton Garikano

Henrikek, tonu **erreserbatuan**, bere fortunaren parte bat onar zezala erregutzen zion Konradi, ez baitzekien harekin zer egin. Xabier Olarra

Batzuetan garratza eta mingarria da, eta askotan **erreserbatua** ere bada. Luis Elberdin

· Medikuaren agiriaren arabera, «pronostiko **erreserbatuko** gaixotasuna du». Berria - Euskal Herria

5 *iz* jatetxe eta kidekoetan, bakarturik egon nahi dutenen pertsona edo taldeeentzako tokia.

-Eser gaitezen, Fermin, hor, **erreserbatu** batean. Pako Aristi

Saloiaren atzealdean zegoen **erreserbatu** batean desagertu baino lehen. Joxemari Iturralde

Erreserbatura pasatu ziren eta, kartako aukera zabalean galdu ondoren, maîtreak gomendatu ziena eskatu. Xabier Mendiguren Elizegi

Eraman iezadazu oporto bat **erreserbatura**, zeren -Mingoranceri begiratuz- han afalduko dugu, ezta? Segituan biak desagertu ziren atzealdeko **erreserbatuan**. Joxemari Iturralde

---

erreserbatze *iz* erreserba.

Aurten, aldiz, asteburuetako **erreserbatzeak** apal dabiltza, Nicolas Graeff Pirinio Atlantikoetako turismo batzordeko arduradunak. Berria - Harian

Berriari azaldu dionez aitzineko urteen **erreserbatzeen** %20 edo %30 baizik ez dira. Berria - Harian

---

erreserbista *(orobat **erreservista**) izond/iz*

Isiltasuna Hausten (Breaking the Silence) du izena Israelgo lau soldadu **erreserbistak** Tel Aviven paratu zuten erakusketa batek. Badituzte amerikanoek 205.000 soldado **erreservista** munduko 130 nazionetan hedatuak. Berria - Mundua

Orotara miliun bat eta lau ehun **erreservista** eta miliun bat eta hiru ehun soldado zerbitzuan direnak. Herria

Erreserbistak prestatzen ari direla salatu zuen Kerryk. Berria - Mundua

Isilarari nahi izan dituztela salatu dute **erreserbistek**. Berria - Mundua

Ez bat ez bi, gure kaporal zuberotarrak **erreserbista** tropak deitu zitinan eta kasernara itzuli gintunan, tarrapataka. Itxaro Borda

---

erreservista ik **erreserbista**.

---

erresidentzia **1** *iz* mota bereko pertsonentzako egoitza.

Adin batekoek ondo gogoratzen dituzte Donostiako Jesuiten **erresidentzian** igande eguerdietako meza haiek. Berria - Kultura

Kontatu nizun ikasle garaikoa ere, Sevillako neska batek eta nik nola hitz egiten genuen egunero pareko **erresidentzian** bizi ziren mutilekin, leihotik leihora, buila batean. Arantxa Iturbe

Gero Paueko **erresidentziako** gelan jarriko ditut. Bernardo Atxaga

Segidan Lucyk Londresen zer egiten ari zen kontatzen zion laburki, **erresidentziako** bizimodua, ingeleseko klaseak, Hayde Parken ikusia zuen kontzertu baten aipamena, eta abar. Joxemari Iturralde

Hurrengo egunean, etxerantz abiatuta, hiriko **erresidentzia** auzoan sartu eta Hotel La Mamunia ikusi genuen, munduan den hotelik apainenetako bat, gida turistikoek diotenez. Bernardo Atxaga

2 erietxe mota, eriak luzaroan edukitzeko egokitua dagoena.

Orain etxean zegoen, inora mugitzeko gauza ez zela, baina ez omen zuen **erresidentzia** batera joan nahi. Xabier Mendiguren Elizegi

Etengabe zaindu beharra baldin bazeukan, zergatik ez zuten **erresidentzia** batean sartzen edo etxean beraiekin edukitzen, alaba behintzat arduratzen zenez gero? Xabier Mendiguren Elizegi

Etengabe zaindu beharra baldin bazeukan, zergatik ez zuten **erresidentzia** batean sartzen edo etxean beraiekin edukitzen, alaba behintzat arduratzen zenez gero? Xabier Mendiguren Elizegi

Erresidentzia pribatu bateko horma artean aldi bat egin ondoren, lehen baino okerrago itzuli zen etxera, beti barrez, beti pozik, beti txoro. Bernardo Atxaga

3 bizilekua izatea.

George Bushek egindako proposamenarekin lanpostua duten etorkinek hiru urterako **erresidentzia** baimenak lortuko dituzte; epe luzean deportazioa erraztuko duen beldur dira etorkinak. Berria - Mundua

Bitartean, AEBetan lana duten etorkinek «txartel berdeak» behin betiko **erresidentzia** baimenak eskatu ahal izango dituze. Berria - Mundua

Hitzarmenean integratzeko baldintzak zehaztuko dira eta **erresidentzia** agiriak lortzeko beharrezkoa izanen da. Berria - Euskal Herria

---

erresidentzial *izond* erresidentziarena, erresidentziari dagokiona.

Haren iritziz, mugimendu horrek «arrazoi **erresidentzial** nabaria» du, hegoaldeko eskualdea, esate baterako, «bigarren egoitzei esker» handitzen ari baita Berria - Euskal Herria

---

erresimendu ik **erregimentu**.

---

erresinol ik **erresiñol**.

---

erresinol ik **erresiñol**.

---

erresinul ik **erresiñol**.

---

erresinul ik **erresiñol**.

---

erresistente **1** *iz* erresistentziako kidea.

Hara-hona iheslari eta **erresistente** bila ibiltzen zen komando nazi ibiltari bateko buruzagi bat zen Otso. Anjel Lertxundi

Paper eta arrazionamendu txartel faltsuak marrazteko lehena zen Chadefaud: bazuen zenbait eta zenbait jende Espainiara iraganarazirik, judioak, komunista iheslariak, **erresistenteak** eta ingeles aireko gidatzaileak. Itxaro Borda

Beti Frantziako eta Europako bertze herrietako **erresistenteen** eta soldaduen balentrien berri jakiten zuten, telebistaren bitartez bereziki. Eneko Bidegain

Graxik hantxe hartu zituen **erresistenteek** utzi zizkioten gutun eta dokumentuak. Eneko Bidegain

Eta zergatik ez webgune bat sortu, Euskal Herriko **erresistente** eta deportatuen lekukotasunekin. Eneko Bidegain

Erresistentziako legeek, ihesean ere, indarrean jarraitzen zuten **erresistente** kideari buruzko xehetasunik ez zen jakin behar, edo ahal bezain guti, beti bezala, erortzen baziren, bertze nehor ez erorrarazteko. Eneko Bidegain

Zurzuri eta gereziondoak, erreta eta hilda, zutik daude oraindik bizirik erre dituzten landetan, belar hits eroak badoaz **erresistenteen** herrixketan akabatu dituzten zaharren, amen, haurren eta neskatxen gorputzetan gora. Felipe Juaristi

2 irud/hed

Gaurko munduaren lekuko naiz, eta nahi dut izan, horri diot **"erresistente"** izatea. Ana Urkiza

---

erresistentzia *(orobat **erresistenzia** g.er. eta **erreziztentzia** g.er.)* **1** *iz* erresistitzea, erresistitzeko jarrera; eskuarki inbasio baten edo legez kontrakotzat hartzen den erregimen baten kontra borrokatzen den higikunde armatua.

26 buruzagi erlijiosok sinatutako gutunaren arabera, ekintzaileek herria defendatzen dute erasoen bidez: «**Erresistentzia** eskubide bat da». Berria - Mundua

Aldaketari diogun **erresistentzia** baldintza historiko eta sozialen fruitua da eta hori oso garrantzitsua da. Berria - Ekonomia

Gaixoak tratamendua eteten duenean edo era egokian jarraitzen ez duenean, birusak botiken aurkako **erresistentzia** garatzen du. Berria - Gaiak

Samarrako **erresistentzia** zapaltzeko abiatu zuten erasoa okupazio indarrek. Berria - Mundua

Botikekiko **erresistentziak** oso erraz garatzen ditu malariak. Berria - Gaiak

Europako Batzordeak egitasmo bat hasiko du ostiral honetan antibiotikoekiko **erresistentziak** saihesteko. Berria - Gaiak

Eskuak heldulekuari lotu eta eragin pedalei: indarra, potentzia, **erresistentzia**, abiadura, izan dira Museeuwren dohainetako batzuk. Berria - Kirola

Zipreko Rallyak autoen **erresistentzia** eta gurpilen itsaspena neurtzen du. Berria - Kirola

Azken gerlan **erresistentzian** sartu zen eta deportatua egon berak zakiela zer zuen pairatu. Herria

Aosta inguruko mendi hauetan eman zituen onenak faxismoaren kontrako **erresistentziak** ere. Anjel Lertxundi

Orduan sartu da **erresistentzian**, juduak gerizatu, de Gaullen anaia Suizara ereman, bultzatu gazteak ez diten joan STO delakora, bainan joan borrokatzera sasi-gudarien artean. Herria

Beharginen oinazea, langileriaren **erresistentzia**, klaseen arteko borroka finean. Berria - Kultura

Nafartar leialen **erresistentzian** parte hartü züen San Frantsesen bi anai handiek, Migel eta Johanek, bereziki Frantziako armada bat jin zelarik Iruñez jabetzera, Jean d'Albert Nafarroako errege xüxenaren izenean. Herria

Palestina okupatuko **erresistentziako** literatura eta literatura sionista aztertu zituen. Berria - Kultura

Hiriak neorealismoarekin nahiz **Erresistentziarekin** duen harremana interesatzen zait. Berria - Kultura

Erresistentzia era baketsuan edo armen bidez egiten da. Berria - Mundua

Egileak ondo ezagutu zuen Cavailles, biak izan baitziren *École Normale Supérieure*-ko ikasle eta irakasle, eta biak aritu zirelako **Erresistentzian** II Mundu Gerran. Berria - Kultura

Erresistentziako kide, DST zerbitzu sekretuetako partaide, komisario, eta ere Enbata aldizkariaren eta mugimendu politikoaren sortzaileetarikoa. Herria

Gerla denboran **erresistentzia** egin zion nazismoari. Herria

Itoizko herriaren **erresistentziari** buruzko bideo emanaldia. Herria

Iragan astean, **erresistentziak** Pertsiako Golkoko portura doan oliobide bati eraso egin ondoren, petrolio ekoizpena erdira gutxitu zela jakin zen, 1,8 milioi upeletik 900.000 upelera. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erresistentzia handiko txirrindulari sendoek, indartsuek, irabazten dute normalean, Flandesko harbidedun aldapa tenteak ondo gainditzen dituzten txirrindulariek. Berria - Kirola

Material merkea da, aire zabalean egonkorra, ez da herdoiltzen, isolatzaile termiko, elektriko eta akustikoa da eta **erresistentzia** mekaniko egokia du. Berria - Gaiak

Funtsean ez da atzo hasia Irango jazarketa eta **erresistentzia** politiko hori. Herria

Erresistentzia politikoaren kontra Estatuek xutik ezartzen dituzten tresna juridikoetaz. Herria

Abbasek **erresistentzia** armatua ontzat jotzen du. Berria - Harian

Jihad Islamikoari eta Hamas **Erresistentzia** Islamikoaren Mugimenduari euren eskuetan zeuzkaten sei soldadu israeldarren itzul zitzaten onarraraztea lortu zen Egiptoko diplomatikoen, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen eta PAN Palestinako Aginte Nazionalaren bitartekaritzari esker. Berria - Mundua

Erresistentzia palestinarreko talde armatuen erasoen aurka «errekzionatzeko eskubidea» exijitzen du Israelek. Berria - Mundua

Matxinatuek Haiti osoaz jabetzeko asmoa aldarrikatu dute eta xede horretan, Haitiren Askapenerako **Erresistentzia** Nazionaleko Frontea izena hartu dute. Berria - Mundua

Ez dakit hala den ala ez, bainan frantses **erresistentzian** erraiten zen bezala, erortzen delarik norbait bertze bat jalgitzen da itzaletik. Herria

Bertze izen batzu orokorrak dira, hala nola Battitta eta Maddi, izenak eta ez deiturak, bi izen horien gibelean datzalarik Zuberoako jendea, jende xumea, askatasunaren alde jokatuko dena, egiazko **erresistentzia** . Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zientzialarien ustez, **erresistentzia** maila altuena duten birusak, gehienetan, babes neurririk gabeko sexu harremanen bidez kutsatzen dira. Berria - Gaiak

Abortua emakumeek tiroideen kontrako **erresistentzia** gaitasun ahula dutenean gertatzen da. Berria - Gaiak

Erresistentzia lanak eginarazi zizkion Alfonso Azurza prestatzaile fisikoak. Berria - Kirola

Gazan **erresistentzia** talde palestinarrek sostengu handia dute, batez ere errefuxiatu guneetan. Berria - Mundua

Atzo, **erresistentzia** indarrek eraso andana burutu zuten. Berria - Harian

Igandean, aldiz, **erresistentzia** proba gogorrenaren ostean altxa zituen besoak. Berria - Kirola

Erresistentzia lasterketa zen. Berria - Kirola

Zergatik idatzi inbasio eta **erresistentzia** garaietan? Berria - Kultura

Baita oso atsegin zaizkidan **Erresistentzia** garaiko idazle batzuekin duen lotura ere, Cesare Paveserekin esaterako. Berria - Kultura

Gerla denboran, euskaldun frangok beren bizia irriskatu zuten **erresistentzia** saretan edo mugalari lanetan, iheslari, judu, ingles soldado eta holakoeri muga iragaiten laguntzen. Herria

Alabaina, **erresistentzia** nukleoak gogortu egin dira. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estatinek, baina, ez dute zertan farmako **erresistentziarik** sortu. Berria - Gaiak

5 *erresistentzia kutxa* enpresa eta kidekoetan, langile kaltetuei edo greban daudenei laguntzeko, gainerako langileek eratzen den laguntza sistema.

Sindikatu horrek ez luke bere **erresistentzia kutxa** erabili beharko, eraikuntzako langileak bi abiadura ezberdinetan uzten baititu; greba kobratzen dutenak eta kobratzen ez dutenak. Berria - Ekonomia

Greba luzeari eusteko ELAk duen **erresistentzia kutxa** funtsezkoa izan da. Berria - Harian

Joseba Leza langileen batzordeko presidenteak atzo argi utzi zuen lortutako dirua grebalariei laguntzeko izango dela, batik bat sindikatuetako **erresistentzia kutxetatik** kobratzeko aukera ez dutenei. Berria - Ekonomia

CCOOk **erresistentzia kutxarik** ez erabiltzeko eskatu dio ELAri. Berria - Ekonomia

Erresistentzia kutxak hustuta zeuden urtetako diktadura gogorraren ondoren; poliziak, berriz, beti bezain bortizki jokatzen zuen. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzo erresistentzia (4); **aurkako erresistentzia** (19); **baita erresistentzia** (3); **bere erresistentzia** (5); **da erresistentzia** (8); **den erresistentzia** (3); **desobedientzia eta erresistentzia** (6); **dira erresistentzia** (4); **du erresistentzia** (7); **duen erresistentzia** (4); **dute erresistentzia** (6); **duten erresistentzia** (3); **edo erresistentzia** (3); **ere erresistentzia** (3); **erredakzioa hamas erresistentzia** (4); **erresistentzia areagotzen** (3); **erresistentzia armadak** (3); **erresistentzia armatua** (4); **erresistentzia armatuaren** (4); **erresistentzia armatuko** (3); **erresistentzia bat** (3); **erresistentzia da** (5); **erresistentzia egiten** (4); **erresistentzia ekintza** (3); **erresistentzia eta** (28); **erresistentzia eta borroka** (4); **erresistentzia garaian** (3); **erresistentzia gehiago** (3); **erresistentzia gogorra** (3); **erresistentzia handia** (7); **erresistentzia handiagoa** (4); **erresistentzia hori** (3); **erresistentzia indarrek** (7); **erresistentzia indarren** (15); **erresistentzia irakiarrak** (22); **erresistentzia irakiarraren** (16); **erresistentzia irakiarreko** (4); **erresistentzia islamikoaren** (41); **erresistentzia islamikoaren mugimendua** (3); **erresistentzia islamikoaren mugimenduak** (16); **erresistentzia islamikoaren mugimenduaren** (3); **erresistentzia islamikoaren mugimenduari** (3); **erresistentzia islamikoaren mugimenduko** (15); **erresistentzia islamikoko** (3); **erresistentzia islamikorako** (15); **erresistentzia islamikorako mugimenduak** (7); **erresistentzia islamikorako mugimenduaren** (3); **erresistentzia islamikorako mugimenduko** (3); **erresistentzia jarduerak** (3); **erresistentzia jarduerak eraiki** (3); **erresistentzia kutxa** (4); **erresistentzia mekaniko** (4); **erresistentzia nazionaleko** (4); **erresistentzia palestinarrak** (15); **erresistentzia palestinarraren** (8); **erresistentzia palestinarraren kohete** (3); **erresistentzia palestinarrari** (3); **erresistentzia palestinarreko** (5); **erresistentzia palestinarreko talde** (3); **erresistentzia pasiboa** (7); **erresistentzia politiko** (3); **erresistentzia proba** (3); **erresistentzia sunita** (4); **erresistentzia sunitak** (5); **erresistentzia sunitaren** (8); **erresistentzia sunitari** (4); **erresistentzia sustatzea** (3); **erresistentzia talde** (6); **erresistentzia txetxeniarrak** (3); **erresistentzia xiitaren** (3); **erresistentzia zapaltzeko** (3); **eta erresistentzia** (54); **eta erresistentzia sunitak** (3); **eta hamas erresistentzia** (4); **falujan erresistentzia** (3); **gure erresistentzia** (4); **hamas erresistentzia** (40); **hamas erresistentzia islamikoaren** (30); **hamas erresistentzia islamikorako** (8); **indarren aurkako erresistentzia** (3); **irakeko erresistentzia** (10); **irakeko erresistentzia indarren** (4); **jainkoaren erresistentzia** (8); **jainkoaren erresistentzia armadak** (3); **kontrako erresistentzia** (11); **lra jainkoaren erresistentzia** (6); **p erresistentzia** (7); **zuen erresistentzia** (7)

atzo erresistentziak (8); **aurkako erresistentziak** (5); **aurkako erresistentzian** (3); **ditu erresistentziak** (4); **du erresistentziak** (4); **erresistentziak aeben** (3); **erresistentziak aebetako** (6); **erresistentziak atzo** (3); **erresistentziak bagdaden** (3); **erresistentziak ere** (6); **erresistentziak ez** (7); **erresistentziak ez du** (3); **erresistentziak gogor** (5); **erresistentziak hainbat** (3); **erresistentziako kide** (16); **erresistentziako kide bat** (4); **erresistentziako kide eta** (4); **erresistentziako kideak** (17); **erresistentziako kideei** (3); **erresistentziako kideek** (25); **erresistentziako kideen** (16); **erresistentziako kideen arteko** (4); **erresistentziako literatura** (3); **erresistentziako talde** (3); **erresistentziako ustezko** (12); **eta erresistentziak** (8); **eta erresistentziako** (15); **eta erresistentziako kideen** (5); **eta erresistentzian** (4); **eta erresistentziarako** (3); **euskal erresistentziarekin** (3); **herri erresistentziako** (3); **hil ditu erresistentziak** (3); **hil zituen erresistentziak** (3); **indarren eta erresistentziako** (3); **irak erresistentziak** (3); **irakeko erresistentziak** (3); **irakeko erresistentziako** (4); **kontrako erresistentziak** (5); **ustez erresistentziako** (3); **ziren erresistentziak** (3); **ziren erresistentziako** (3); **zituen atzo erresistentziak** (4); **zituen erresistentziak** (8); **zituzten erresistentziako** (6); **zituzten erresistentziako kideek** (5); **zuen erresistentziak** (5)

armadak erresistentziaren (3); **atzo erresistentziaren** (4); **baina erresistentziaren** (3); **dira erresistentziaren** (6); **dira erresistentziaren erasoen** (3); **erresistentziaren aldeko** (3); **erresistentziaren armadak** (3); **erresistentziaren artean** (7); **erresistentziaren arteko** (8); **erresistentziaren aurka** (7); **erresistentziaren aurkako** (9); **erresistentziaren azken** (6); **erresistentziaren azken erasoek** (3); **erresistentziaren babeslekutzat** (3); **erresistentziaren babeslekutzat jotzen** (3); **erresistentziaren batzordeak** (7); **erresistentziaren batzordeak talde** (5); **erresistentziaren beste** (4); **erresistentziaren bidez** (3); **erresistentziaren eraso** (8); **erresistentziaren eraso batean** (6); **erresistentziaren erasoak** (8); **erresistentziaren erasoan** (3); **erresistentziaren erasoen** (5); **erresistentziaren erasoen ondorioz** (3); **erresistentziaren erasoetan** (12); **erresistentziaren esku** (4); **erresistentziaren eta** (12); **erresistentziaren eta aebetako** (3); **erresistentziaren eta okupazio** (6); **erresistentziaren garaipena** (3); **erresistentziaren kontrako** (4); **erresistentziari aurre** (7); **erresistentziari aurre egiteko** (5); **erresistentziari buruzko** (3); **erresistentziarik ez** (3); **erresistentziarik gabe** (6); **erresistentziarik jarriko** (3); **eta erresistentziaren** (26); **eta erresistentziaren artean** (6); **eta erresistentziaren arteko** (8); **eta erresistentziari** (3); **euskal erresistentziaren** (4); **herri erresistentziaren** (8); **herri erresistentziaren batzordeak** (7); **hil dira erresistentziaren** (4); **hil ziren erresistentziaren** (4); **indarren eta erresistentziaren** (5); **irakeko erresistentziaren** (3); **irakiar erresistentziaren** (3); **jainkoaren erresistentziaren** (5); **jainkoaren erresistentziaren armadak** (3); **prc herri erresistentziaren** (4); **ustez erresistentziaren** (3); **zauritu ziren erresistentziaren** (3); **ziren erresistentziaren** (9); **ziren erresistentziaren eta** (3)

---

erresistentzialista *izond* erresistentzaiari dagokiona.

Baina gu ez gaude borroka **erresistentzialistak** bultzatzeko, erresistentzia kutxarekin irauteko ea ezer aldatzen den, beste langileen elkartasunarekin beste motako borroka soziala bilatu beharrean. Berria - Ekonomia

---

erresistenzia ik **erresistentzia**.

---

erresistitu, erresisti(tu), erresistitzen du *ad* eraso, bultzada, presio edo kideko bat jasan, amore eman edo higitu gabe.

Egunero sufritzen dugu eta **erresistitu** beharra daukagu, tankeen kontra harriekin borrokatu behar badugu ere. Berria - Harian

«Erresistitzen ahalegintzen zen idazlea nintzen, ez idazten ahalegintzen zen erresistentea», idatzi zuen. Berria - Harian

«Erresistitzen ahalegintzen zen idazlea nintzen, ez idazten ahalegintzen zen erresistentea», idatzi zuen. Berria - Harian

Nahiz eta **erresistitzen** saiatu, gizonak poliki-poliki, esku trebez, lasaitu egin du; besteak klitorisa ikutzen dio eta titiburuak ferekatzen. Juan Martin Elexpuru

[Atzipe] hark itzali baitzuen gugan, egun batzuk lehenago, **erresistitzeko** eta are bizitzeko borondate guztia. Juan Garzia

Inor ez dago inongo itunen izenean heriotza, zauriak edo gorputzarentzat kaltegarria dena dakarkionari ez **erresistitzera** behartuta. Esteban Antxustegi

Baten bat ez **erresistitzera** behartu nahiko bagenu, gauzarik ezinezko eta absurduenera obligatuko genukeela: proposatzen diren bi gaitzetatik handiena hautatzera, heriotza defentsa baino askoz okerragoa baita. Esteban Antxustegi

Joera horrek aurkako joerarekin borrokatu behar du, erasotutako gizarteak **erresistitzeko** duen joerarekin, baina erresistentzia honek normalean ezin du prozesua mantsotzea baino gehiago lortu. Iñaki Mendiguren

Ptolomeo Hefaistok aipatzen duen itsas harkaitz harena, hura ere, giza bortxaren erasoak gogor **erresistitu** arren, eta orobat uraren eta haizearen haserrealdi bortitzenak, anbulu zuri deritzan lorearen ukituarekin baino ez baitzen ikaratzen. Koro Navarro

Literaturak erresistentzia kontua izaten jarraitzen du, horixe baita literatura onaren ezaugarri nagusia, **erresistitu** egiten dela, ergelkeriari, telebistari eta edozeri aurre egiten diola. Berria - Kultura

---

erreskada *(orobat **errezkada** g.er.)* **1** *iz* errendaka.

Arrainaren pabiloia zabaldu berri zuten; hainbat emakumek harri zurien **erreskadak** zeharkatzen zituzten, ahaztutako otarre eta oihalen itzalen artean. Karlos Zabala

Erreskadak behar bezala osatuta eta zenbakiak ondo bazeuden, adibidez, *Appell*-ak gutxiago irauten zuen. Urtzi Urrutikoetxea

Une batean bosteko **erreskada** lerro bakar bihurtu zen. Urtzi Urrutikoetxea

Horrela uler zitekeen adreilu-fabrikan, patioan nenbilela edo sukalde komunalean **erreskadan** nengoela, bizpahiru alditan itsas txakur itxuradun gizona ezagutu izana, hainbeste aurpegi ezezagunen artean. Urtzi Urrutikoetxea

ik beherago 4. Askoren artean

Entzun dudanez heldu berriek azken boladan bi eta hiru egun ere ematen dituzte **erreskadan** zutik, biluzik, dutxara noiz sartuko. Urtzi Urrutikoetxea

Kanpamentutik tarras atera dutena -fardela dirudi, masa bizigabea, trapu piloa- **erreskadaren** amaieran bota dute, han eratzan dute: ez begiratzen saiatu naiz. Urtzi Urrutikoetxea

Gu guztion ahaleginaren ondorio izan zen azkenean **erreskada** luzea osatzea, gizonekin soilik eta bosnakako lerrotan. Urtzi Urrutikoetxea

Errebal guztietan, fabriketako pareta amaiezinen artean, abian dira **erreskada** luze beltzak, hiriko erdialderantz doazela geldi-geldi. Monika Etxebarria

Ahuntzak saltoka ikusten ari banintz bezala ari naiz santu **erreskada** bat errepikatzen. Juan Garzia

Hiru leiho- **erreskada** zituen aretoak, batzuk besteen aurrez aurre, hirunaka. Elizen arteko biblia

Areto nagusiaren inguruko hormek harlanduzko hiruna **erreskada** eta zedrozko ohol- **erreskada** bana zituzten, Jaunaren etxe barruko aretoaren eta atalondoaren tankerara. Elizen arteko biblia

2 ***erreskadan*** *adlag* bata bestearen atzean, lerroan.

Aspalditik pentsatuta baneuzka bezala atera baitzaizkit, **erreskadan**, bata bestearen atzetik, elkarri lekua eskatzen, hitz guztiek zer esana balute bezala. Berria - Kultura

Laugarren partida irabaz dezake **erreskadan**, lehen aldiz sei urtean. Berria - Kirola

Urdinek 16 tanto egin zituzten **erreskadan**; 22rako falta zitzaikienak. Berria - Kirola

Nagorek 35 minututan egin zituen Abel Barriolarenak, azken hamahiru tantoak **erreskadan** lortuz. Berria - Kirola

Horrez gain, seigarren partida irabazi dute **erreskadan** Ligan. Berria - Kirola

Erreskadan ezarri zituen agudo sukaldeko gainerako aulkiak. Josetxo Azkona

Michel Fourniretek **erreskadan** hiltzen zituen bahitutako neskak, Namurgo eta Dinanteko fiskalen ustez. Berria - Gaiak

Hainbat epitafio gogoratu zituen, **erreskadan**. Unai Elorriaga

Hara! -egin zuen oihu don Ottaviok, liluratuta- dena **erreskadan** atera zaidak! Jon Muñoz

Gaitz batek **erreskadan** beste batzuk ekarri ohi dituela erakutsiz, bazirudien ontzi hartan ginenoi Heriok bi modutara eraso gura zigula. Edorta Jimenez

Gau horretan ostera etorri zen amets andana **erreskadan**. Juan Garzia

Morse andrearen aurretik iragan ziren **erreskadan**, eta mantso-mantso, pisu-zuloan sartuta eta etzanda alferrik galdu zituen egun geldoak. Mirentxu Larrañaga

Orearen biribil zuri lodiak **erreskadan** zeuden azpilean. Anton Garikano

Bere kontu lixun pertsonalegi haiek **erreskadan** botatzen hasten zitzaizunean. Oskar Arana

Egunak **erreskadan** zihoazkion, bereizezin. Mirentxu Larrañaga

Apur bat beranduago, **erreskadan** geldi-geldi itxaroten genuela, bere erara gizon ederra zela ikusi dut. Urtzi Urrutikoetxea

Miarritzek Heineken Kopako finalerdiak jokatuko ditu hirugarren urtez **erreskadan**, Bathen aurka. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dute erreskadan (3); **egin zituzten erreskadan** (3); **erreskadan egin** (4); **garaipena erreskadan** (3); **hirugarren urtez erreskadan** (3); **tanto erreskadan** (3); **urtez erreskadan** (4); **zituen erreskadan** (7); **zituzten erreskadan** (3)

---

erreskaldatu *izond* gardostua, gaingiroki errea.

Aire **erreskaldatua** hartu zuen. Lopez de Arana

Beso zirtzil bat, aurpegi **erreskaldatu** gorri-beltz bat eta buru soildu ikaragarri bat ikusi ahal izan zituen zeharretara. Lopez de Arana

Oihal **erreskalduaren** usaina areagotuz zihoan. Lopez de Arana

Arrautza itxurako puxika gorriak, horiak, berdeak aireratzen ziren; bolbora-usaina eta paper **erreskaldatua**. Lopez de Arana

Eskaileretan behera jaistean, denetariko usainak sumatzen ziren: lehenik, bizarra egiteko bitsarena; gero, urreztatuak garbitzeko oreena; beherago, hirugiharrak eta ile **erreskalduak** isuria; eta azkenik, zaborrak eta gas karbonikoak sortarazia. Lopez de Arana

---

erreskaldu *izond* erreskaldatua, gardostua.

Eskaileretan behera jaistean, denetariko usainak sumatzen ziren: lehenik, bizarra egiteko bitsarena; gero, urreztatuak garbitzeko oreena; beherago, hirugiharrak eta ile **erreskalduak** isuria; eta azkenik, zaborrak eta gas karbonikoak sortarazia. Oihal **erreskalduaren** usaina areagotuz zihoan. Lopez de Arana

---

erreskan *izond* erreskadan, bata bestearen atzetik.

Sastarrin zirela, kamioi bat, gero beste bat, laster kamioiak **erreskan**. Pablo Sastre

Gero etorriko zirenen izenak, barkatu, baina ez naiz ausartzen denak **erreskan** ipintzen, bat baino gehiago utziko bainuke nahi gabean ahaztuta. Pello Zabala

Urtarrilean egon zen sasoirik onenean, eta bere sasoiak Realak **erreskan** eskuratu zituen bost garaipenekin bat egin zuen.Gertatzen dena da ezen, ibilian eguzki izpiak moztu ahala, lurreko toki jakinak **erreskan** argi gabe gelditzen direnez, libratzen duguna argiz betetzen dela, eta horregatik gorputzaren geriza izan dena atzetik datorkigula ematen du, beti berdin. Berria - Kirola

---

erreskataezin *izond* ezin erreskatatuzkoa.

Egunkarietan irakurri nuenez, bertan bizi izandako jendea hara hurbildu zen azken asteetan, izpiritual edo nostalgiazko jo zitekeen jarrera harekin bere bizitza puska ahaztu eta **erreskataezin** hura, urtegia egin zenean galdutzat emandako bizitza puska hura berreskuratzera. Harkaitz Cano

---

erreskatari *iz* erreskatatzailea.

Erreskatariek ezin izan zuten deus egin txirrindularia salbatzeko. Berria - Euskal Herria

---

erreskatatu, erreskata(tu), erreskatatzen **1** du *ad* bahituriko norbait edo zerbait bat askatu, indarrez edo diruaren truke.

Artikoko izotz-puska batean, hondoratzeko zorian zeuden 12 zientzialari **erreskatatu** zituzten atzo Errusiako salbamendu taldeek. Berria - Gaiak

Guardia Zibilak Euskal Herriko 73 mendizale **erreskatatu** zituen iaz Huescan. Berria - Euskal Herria

Alluitz mendian eroritako gazte bat **erreskatatu** du Ertzaintzak. Berria - Euskal Herria

Dontzeilak **erreskatatzea**, etsai ustez menderaezinak garaitzea, emandako hitza kosta ahala kosta betetzea. Martin Anso

Errusiako segurtasun indarrak zulo horretatik sartu eta gatibuak **erreskatatzen** saiatu ziren. Berria - Mundua

Sirius **erreskatatu** behar dugu eta eritegiko aretora itzuli, gu falta garela inor ohartu baino lehen. Iñaki Mendiguren

'Izotzauslea ezin da honaino heldu eta airetik **erreskatatuko** gaituzte,' abisatuko du gero baten batek. Joseba Sarrionandia

Arrantza-ontzian zihoazen bost marineletatik biren gorpuak **erreskatatu** ditu Ertzaintzak, eta beste batena aurkitu. Berria - Ekonomia

Sendiak mendizalea **erreskatatzeko** lanak hasteko eskatu du. Berria - Kirola

Beste ikasle bat, gainerakoak baino zaharxeagoa, luzea eta zurbila, begi biziak eta bizar beltza zituena, **erreskatatzera** etorri zitzaion. Koro Navarro

Salbamendu taldeek beste 43 bidaiari bizirik **erreskatatu** zituzten eskualdeko arrantzale batzuek. Berria - Mundua

Ontziko 20 marinel onik **erreskatatu** zituzten. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Irlandarren usteen arabera, gizakiak ez ziren benetan hiltzen, Azpimundura bidaliak izaten baizik, eta handik **erreskatatuak** izan zitezkeen. Joanes Urkixo

Juanikok ahal izan zuen guztia egin zuen **erreskatatu** zuten arrantzaleek animalia hil ez zezaten. Iban Zaldua

Diskoa aldatzeko aprobetxatu dut, eta konpakto koipetsuen artetik Ruper Ordorikaren *Ez da posible* **erreskatatu** dut. Iban Zaldua

Aire zabalean biluzik egotea, horra egun hauetan Mikelek ahanzturatik **erreskatatu** duen bertze sentsazio bat. Aingeru Epaltza

"Hau da Las Vegas diot eta ez naiz lotsatzen" pentsatzen du zapata zuriak dituen gazteak, auzoak eta hiriak bere aldera **erreskatatuz**, aspaldi pasatako kontzertuen berri ematen duten kartel erdi tarratatuei eta neoi argiei so. Harkaitz Cano

Izozkailua jela bloke egina zegoen eta labanaz **erreskatatu** behar izan zuen garagardo lata izotzezko presondegitik. Harkaitz Cano

Maitasunak **erreskatatu** zuen infernutik. Bernardo Atxaga

Haurtzaroko emozioak **erreskatatzea** izan da zure obraren helburua? Ana Urkiza

Mary Annek **erreskatatu** egiten nau beti: iraganetik atera ninduen lehen, etorkizunaren beldurra kentzen dit orain. Bernardo Atxaga

Surrealistek **erreskatatu** zutenetik, Lautréamonten poesia mugarritzat hartzen da literaturaren historian. Bernardo Atxaga

Trafiko seinaleak, landareak, bideozintak, biniloz eta zeluloidez egindako bere azken collageak, eta zaborretatik **erreskatatutako** beste hainbat gauza. Harkaitz Cano

80ko hamarkadan ipuingintzak eman zituen harribitxietatik bazter samarrean geraturiko perla bakan batzuk **erreskatatzea**. Berria - Kultura

Armairuek apal antzekoak zituzten izkinatan, ertzetan borobilduak: bertan pilatzen zituen zaborretatik **erreskatatzen** zituen hegaluze lata erdi hutsak eta bestelakoak. Harkaitz Cano

Egurrezko kutxak armairuen ordez; zaborretik **erreskatatutako** hainbat altzari; koloretako zapi handia egongelako atearen lekuan. Sonia Gonzalez

Horra literaturaren eragin ederretan atseginena: nork bere burua **erreskatatzeko** balio izatearena. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat erreskatatu (6); **erreskatatu behar** (6); **erreskatatu behar izan** (3); **erreskatatu dute** (4); **erreskatatu zituen** (3); **erreskatatu zituzten** (7); **erreskatatu zuen** (9); **erreskatatu zuen atzo** (4); **erreskatatu zuten** (3); **mendizale bat erreskatatu** (4)

---

erreskatatzaile *iz* norbait edo zerbait erreskatatzen duen pertsona.

Erreskatatzailea Beltza bera zen, Mireiak ez bazekien ere. Martin Anso

Erreskatatzailea agertzeko garaia zen..., baina oraingoan inor ez zetorren laguntzera. Iñaki Mendiguren

---

erreskatatze *iz* bahituriko norbait edo zerbait bat askatzea, indarrez edo diruaren truke.

Emi, Dede eta Omarren memoria etengabe azaltzen da nobelan, baina ez modu nostalgikoan, esperientziaren **erreskatatze** gisa baizik. Berria - Kultura

---

erreskate *iz* **1** erreskatatzea.

Polizia ikerketa lanetan ari da eta ebasleek **erreskatea** eskatuko dutela uste dute. Berria - Kultura

Zoritxarrez, ez dut dirurik nire **erreskatea** ordaintzeko. Bernardo Atxaga

Ondoz ondoko porrot militarrengatik zegokion **erreskatea** ordainduz. Iñaki Mendiguren

Egoera sakon aztertu gabe ere **erreskatea** oso zaila dela iritzi dio EMFko medikuak. Berria - Kirola

Helikoptero bidezko **erreskatea** Oiartzunen. Berria - Euskal Herria

Orotara hamar bat ordu iraun zuen **erreskateak**. Berria - Kultura

Bahitzaileek azaldu zutenez, bahituak banandu egin dituzte, **erreskateak** galarazteko. Berria - Mundua

Abelen seme-alaba konparatiboki errugabe hauek Kainen seme-alabak lotsagorritan utzi zituzten gaitzaren ordez ongia itzulita, beren hiltzaileen **erreskatera** etorriz kaindarrak beren bekatuek salatu zituztenean. Iñaki Mendiguren

Adimena eta ezagutza zer poetikoaren, ametsaren eta zer primitiboaren esparrura bazterturiko sinbolikaren **erreskatearekin** bilduko dituen diskurtsoa. Xabier Amuriza

Deia jaso ondoren, EAEko Larrialdi Zerbitzuek anbulantzia bat eta Ertzaintzaren **erreskateko** helikopetro bat bidali zituzten. Berria - Euskal Herria

Orain argi daukat, handitzean pilotua izango naiz, **erreskateko** pilotua. Patxi Iturritegi

Lurjauzia gertatu eta berehala jarri zituzten martxan **erreskate** eta garbiketarako baliabideak, Richard Tesore SOS Itsasoko Faunaren **Erreskaterako** Erakundeko burua da. Berria - Harian

Errepideko **erreskaterako** ekipamenduak ere jarri ditu kanpainako ospitalearekin batera, mementoan presakako laguntzarik eman beharko balitz. Berria - Euskal Herria

2 (izenlagunekin)

Jessica Linch soldaduaren ustezko **erreskatearen** inguruan Pentagonoko estrategek antzeztu zuten operazioak Hollywoodeko gidoigilerik onenak idatzita zirudien. Txema Ramirez de la Piscina

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arrisku handiko kiroletan, mendizale eta espeleologoen artean, kasu, **erreskate** taldeak egoteak eta zerbitzu horiek debalde izateak, zenbait kirolzale arrisku handiak hartzera eraman omen ditzake. Iñaki Heras

Erreskate taldeek oraindik lanean jarraitzen dute. Berria - Mundua

Berehala balea berriro ere itsaso zabalera eramateko **erreskate** lanak hasi zituzten Itsas Salbamenduko arduradunek. Berria - Gaiak

Nafarroako Gobernuaren helikopteroa eta **erreskate** txakurrak erabiltzen ari dira bilaketa lanetan. Berria - Euskal Herria

Lasai ederrean itxaroten zuten **erreskate**-indarren etorrera. Karlos Linazasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dugu taliban presorik askatu ezta diru **erreskaterik** ordaindu ere. Ertzaintzako hainbat unitate, mendi **erreskaterako** taldeak, urpekariak eta helikoptero bat erabili zituzten bilaketa lanetan. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erreskate lanak (7); **erreskate lanetan** (3); **erreskate taldeak** (6); **erreskate taldeek** (8); **eta erreskate** (4)

---

erreski ik **errazki**.

---

erreskriptu *iz* Aita santuaren erantzuna grazia-eskaera bati.

Ez al ziren bata bestearen ondoan etorri, senatukontsultoak, plebiszituak, pretoreen ediktuak, kontsulen ordenantzak, edilen araudiak, juriskontsultoen erantzun edo erabakiak, pragmatika-berronespenak, **erreskriptuak**, ediktuak eta enperadoreen nobelak? Andres Urrutia

Magistratua nahitaez joan beharko balitzaio legegileari, oinarririk okerrena onartuko litzateke eta gure artean berretsiko genuke **erreskriptuen** legeria. orobat, baldin eta bereizten badakigu senatukontsultoak, plebiszituak eta printze zintzoen ediktuak enperadoreen **erreskriptuetatik**. Andres Urrutia

---

erresoluzio *(orobat **erresoluzione** g.er.)* **1** *iz* erabakia.

NBEk 1968an onartutako **erresoluzio** bat gogorarazi zuen.Horrek **erresoluzio** bat behar du. Berria - Euskal Herria

2007an hauteskundeak dira, Kongresuko **erresoluzioak** badu iraungitze datarik. Berria - Euskal Herria

Ondorio nagusien eztabaida eta **erresoluzioen** onespena jasoko da batzar orokorrean. Berria - Euskal Herria

Erresoluzio hori adostu egin behar da gune bakar batean, bere diseinuari eta edukiei dagokienean. Berria - Harian

Erresoluzio administratibo baten zain dago. Berria - Euskal Herria

Strinbergen jatorrizko lanean kanpoko mundua nekazariak ziren, eta horrek eragina du bi protagonisten bizitzan nahiz haien gatazkaren **erresoluzio** jakin batean. Berria - Kultura

Urtebete inguru pasa daiteke behin betiko **erresoluzioa** iritsi aurretik. Berria - Euskal Herria

Ezin izango dugu esan **erresoluzio** prozesua abian denik Anoetako eskeman aipatzen ziren elkarrizketarako bi mahai horiek eratzen ez diren bitartean. Berria - Harian

Erresoluzio mahaia abian jartzea da momentuaren lehentasuna. Berria - Harian

Baliagarria izan da ezagutzeko gatazkaren **erresoluzio** eskema batean alderdi sozialistak ordezkatzen duen esparru politikoa gutxi gora behera noraino iritsi daitekeen. Berria - Harian

Arrazoizkoa litzateke pentsatzea kono bat hartzen duen irudiak adierazten duela begiaren **erresoluzio**-ahalmenaren muga absolutua. Irene Aldasoro

2 bereizmena.

Erresoluzio handiko zunda dinamikoa, mikrouhinen zunda, ozonoa kontrolatzeko sentsore espektrometroa eta sentsore troposferikoa ESAk argitaratu dituen Phobosen argazkiak (7 metroko **erresoluzioa** dute) inoiz egin diren **erresoluzio** handienekoak dira, eta bertan ilargiaren aurpegi leuna ikusten dugu (historian asteroide ugarik astindutakoa), krater garbi eta biribil askorekin bere azaleran. Berria - Gaiak

Erresoluzio handiko kameren bidez, planetaren azalaren mapa zehatza egingo dute. Berria - Gaiak

Erresoluzio altuko espektrometriaren bidez proteina kartzinogenoak aurkitzeko gai dira adituak. Berria - Gaiak

---

erresoluzione ik **erresoluzio**.

---

erresonante *izond* erresonatzailea.

Leku **erresonanteetan**, ahotsak gorputz solido baten kontra jotzen du eta atzera itzultzen da, oihartzuna sortuz eta belarriarentzat bikoiztuz hitzen bukaerak. Santiago Iruretagoiena

Izaten baitira leku batzuk ahotsari berez bidea mozten diotenak: adibidez leku disonanteak, grekoek *catechountes* deitzen dituztenak; 2 zirkuntsonanteak, haiek *periechountes* deitzen dituztenak; baita **erresonanteak** ere, haiek *antechountes* deitzen dituztenak; eta kontsonanteak, haiek *synechountes* deitutakoak. Santiago Iruretagoiena

---

erresonantzia *iz* **1** uhinez mintzatuz, erreflexioz luzatzea edo anplifikatzea; gorputzez mintzatuz, bibratzea bere frekuentziako edo frekuentzia horren multiplo bateko bulkadak hartzean.

Goragoko tonuan abestu nahi dutenean, eszenako egurrezko ateetara begira jartzen dira eta, laguntza horri esker, indartu egiten dute beren ahotsaren **erresonantzia**. Santiago Iruretagoiena

Erresonantzia da efektu hori: ardo-kopa hauts dezakeen kantariaren istorio ospetsuko bera. Irene Aldasoro

Teatroak material sendoagoekin egiten direnean, hala nola hormagintzako material, harri edo marmolarekin, orduan material horiek ez dute hotsaren **erresonantziarik** ematen. Santiago Iruretagoiena

Une askotan, organoaren doinuekin eta elizako **erresonantziekin** ederki jolastuz, oso gustagarria gertatu zaigun emanaldia moldatu du. Berria - Kultura

Harrera adeitsua egin zien, eta, **erresonantziei** begiratu bat eman ondoren, hitz lasaigarriak esan zizkien. Imanol Zurutuza

2 oihartzuna.

Erresonantziaren bitartez lortzen du testu batek bere efektua, gure baitan oihartzunak sortuz: zer dagoen irakurlearen barruan, halakoa eragina. Bernardo Atxaga

Zentzu horretan, aztertu egin behar da aurrena Thuleko jendearen kultura orokorra, eta behin hori erabaki eta gero, kultura jakin horrekin zein **erresonantzia** lor daitezkeen ikusi behar da zerrenda osatu aurretik. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**erresonantzi**)

Meatuak eta tinpanoak, beren gisa utziz gero, **erresonantzia**-sistema bat eratuko lukete (itsas maskor baten antzera) eta soinu batzuk ikaragarri indartuko lituzkete beste batzuen kaltetan. Irene Aldasoro

Zuntz bakoitzak bere **erresonantzia**-maiztasuna du eta soinu egokia iristen zaionean hasten da mugitzen. Irene Aldasoro

Badira objekzio handiak, hala ere, entzumenaren **erresonantzia**-teoriaren aurka. Irene Aldasoro

Hizketa-hotsen formanteak ahots-bidearen **erresonantzi** guneen araberako maiztasunetan kokatzen dira. Lourdes Oñederra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Artikulazio bakoitzaren barruan, fonema motak konkomitantzien arabera -hau da, laringe hotsaren eta sudur **erresonantziaren** arabera- bereizten dira. Isabel Arrigain

Zein da bere aho artikulazioa, laringe hotsik daraman ala ez, eta aho **erresonantziarik** daraman ala ez. Isabel Arrigain

5 (izenlagunekin)

Bi gauza aski ongi ulertu ditu: batetik, dezente urritua dela tumorea, aurreko **erresonantziaren** aldean; bestetik, ordea, oraindik ere nahiko handia dela. Imanol Zurutuza

6 ***erresonantzia kutxa*** *(orobat* ***kaxa****)* soinua anplifikatzeko edo modulatzeko, eta haren tinbrea gauzatzeko helburua duen kutxa modukoa.

Aretoa, azken finean, gure **erresonantzia** kutxa da, eta zenbat eta hobea izan, orduan eta kalitate hobea eskain dezakegu. Berria - Kultura

Askoz ere **erresonantzia**-kaxa txikiagokoa noski, eta beraz, ez hain serioa eta kontuan izatekoa. Iñaki Heras

7 ***erresonantzia (magnetiko)*** diagnostiko medikoan erabiltzen den teknika, erresonantzian jartzen diren gai baten atomoen nukleoen energia absortzioaren azterketan oinarritzen dena.

Izan ere, tumoreak garroak zituela irudi zuen, **erresonantzia** magnetikoetan. Horretarako, 112 gaixori egindako biopsia hepatikoen eta **erresonantzia** magnetikoen emaitzak alderatu zituzten. Imanol Zurutuza

Azken boladan, fisikarien eskutik, badituugu hainbat aparatu konplexu, armategi oso bat hortxe, ekografiaz eta **erresonantzia** magnetiko nuklearrez. Juan Garzia

Medikuak **erresonantzia** bat egiteko eskatutakoan, inork ere ez dio jarriko atzetik doakion *nuklear* adjektiboa. Berria - Gaiak

Osteopatari bisita egin eta Iruñera bidali ninduen, **erresonantzia** egitera. Berria - Kirola

Iruñeko Kynes zentroan egin zioten atzo **erresonantzia** Patxi Eugiri, eta erabat osatzeko lau-sei aste beharko dituela jakinarazi du Jose Maria Urrutia Aspe bere enpresako medikuak. Berria - Kirola

8 ***erresonantzian*** *adlag*

Orduan **erresonantzian** sartzen da. Fernando Morillo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzo erresonantzia (3); **egin zioten erresonantzia** (7); **egin zioten erresonantzian** (3); **egingo diote erresonantzia** (3); **entzumenaren erresonantzia** (3); **erresonantzia bat** (4); **erresonantzia bat egin** (3); **erresonantzia magnetiko** (4); **erresonantzia magnetiko bat** (3); **erresonantzia magnetikoa** (11); **erresonantzia magnetikoa egin** (3); **erresonantzia magnetikoak** (6); **erresonantzia magnetikoaren** (8); **eta erresonantzia** (3)

---

erresonatzaile *izond/iz* erresonatzen duena.

Aho barrunbeak, aldiz, hots-sortzailearen eta **erresonatzailearen** betekizunak biltzen ditu. Isabel Arrigain

Irekidura maila bat gainditu gero, ahoak **erresonatzaile** gisa jokatzen du batez ere. Isabel Arrigain

Sudur kanalak, hura zeharkatzen duten aho-dardaren **erresonatzaile** gisa balio du soilik; berak ere ez du, beraz, hotsik sortzen. Isabel Arrigain

Ahots-bidean aire multzo itxia dugu eta, akustikoki ikusita, ahots-bideak **erresonatzailearen** egitekoa betetzen du (itxia izanik, iragazki motako **erresonatzailearena**, gainera). Lourdes Oñederra

---

erresorta ik **erresorte**.

---

erresorte *(orobat* ***erresorta****) iz* **1** malgukia.

Horrela nagoenetan beti ekartzen dut gogora, nahigabean, **erresortearen** gisara egiten dit jauzi pentsamendura, eta ez dakit zer sentitzen dudan, batzuetan ezinezkoa baita arrazoitutakoa sinestea. Eider Rodriguez

Eta espres egina balitz bezala, ohearen **erresorten** kurrinkak antzoki-gertaldia osatzen du. Piarres Aintziart

Hiru lagunek zenbait egun eman dituzte pezaz peza eta **erresortaz erresorta** desmuntatzeko tresna haundi hori, bai eta bizpahiru kamiuntaratan kargatu ere bideko. Herria

Joantto **erresorte** batek bultzatu balu bezala zutitu zen oldarrean lurrera erori zen aulkitik, eta nehor agurtu gabe handik lekutu. Elena Touyarou

Ene hitzak aditu bezain fite, **erresortak** bulkaturik bezala, ukabila altxatu zidan. Joan Mari Irigoien

Erresorte ikusezin bati eraginez gero, hanka haiek gai ziren edonor izugarri urrun eramateko, berriro ezin aurkitzeko moduan. Jose Morales

2 irud/hed

Aldez aurretik dastatzen ari zen egunen batean sentituko zuen plazerra, noiz eta akatsik gabeko ordena ezarri eta etxeko ekonomiaren **erresorte** guztiak zalu mugituko baitziren, elkarri eraginez. Jose Morales

Esan zion ezinbestekoa dela noizean behin kargu hartzea eta errieta egitea, zeren, bestela, zabartu egiten baitira mendekoak, eta herrixkaren zuzendaritzaren **erresorteak**, berriz, herdoildu eta ahuldu. Jose Morales

---

erresortedun *izond* erresortez hornitua.

"Zeinek emango ote lidake erlojero izatea!" -herrira itzuli, Pedrorekin elkartu, hanka elbarriak moztu eta Parisen ia debaldean lortu zituen hanka **erresortedunak** paratu zituen. Pablo Sastre

---

errespaldo *iz* eserlekuetan, bizkarra bermatzen den zatia. ik **bizkar 13; bizkarralde 2**.

Fermin errenditurik etzan zen asentuaren **errespaldoaren** kontra, iraganeko mamuak bisaian. Berria - Kultura

---

errespel *iz* mahaiez mintzatuz, paretan finkatua dagoena.

Andreasek mahai- **errespela** hormatik askatu, eta haren erdian utzi zuen kriseilua. Anjel Lertxundi

Ez zuen gela txikia ezagutzen, baina bat-batean jabetu zen gelatik ikusten zen txokoaz: belaontziko mahai- **errespela** ezagutu zuen sukaldeko hormaren kontra jasorik, eta kriseilua gero, sabaitik zintzilik. Anjel Lertxundi

---

errespetagarri **1** *izond* errespetatua izatea merezi duena. (pertsonez)

Gizon **errespetagarriak** galtzontzilo hutsetan dagoela ere jarrai zezakek **errespetagarria** izaten. Koldo Biguri

Jatetxe garesti batean bazkalduko dugu, andra **errespetagarriek** lez. Sonia Gonzalez

Mamu talde **errespetagarri** eta ongi hezia. Xabier Olarra

Nahiz eta arropa zimurtuak jantzi, gorbata desagertu eta aurpegia bizar gris hasiberriak estali, pertsona **errespetagarriaren** zantzu nabariak ageri ditu oraindik alde guztietatik. Urtzi Urrutikoetxea

Bai, nekazariak munduko gizakirik **errespetagarrienak** dira niretzat. Jose Morales

-Edozein herritar **errespetagarri** ibil daiteke Baionan barna, arriskurik gabe -aldarrikatu zien guardak. Elena Touyarou

Elizgizon jakintsu, ospetsu eta **errespetagarria**. Berria - Kultura

Aberatsa zara, **errespetagarria**, miretsia, maitatua; zoriontsua zara, ni behinola izan nintzen bezala. Koro Navarro

2 (bestelakoez)

Gazte horrek hiriko abokatu-bulego **errespetagarrienetako** bateko burua du aita. Lopez de Arana

Iritzi guztiak dira **errespetagarriak**, eta bizikidetza funtsezkoa da. Berria - Ekonomia

Ibai **errespetagarriak** ordokian kokatzen dira, ezen ura horizontalean gelditzeko egindako gauza baita, eta erabat horizontala denean bakarrik eusten dio urak bere jatorrizko duintasunari. Koldo Biguri

Kobrearekin nahasturatzen delako brontzea emateko, materia **errespetagarria** inon **errespetagarririk** bada, sonatuki betiraunkor eta well established. Juan Garzia

Negozioak zer diren, faboreak zer diren, dirua zer den... diru kopuru **errespetagarri** baten truke ezagutzen ez duzun norbaiti faborea egitea ezin negozio txarra izan. Sonia Gonzalez

Lehenbiziko aldiz, **errespetagarri** bilakatzen zen, horrenbestez, minbiziaren inguruko jakintza-arloa. Juan Garzia

Hala erlijiotik sortzen diren ideiak oso **errespetagarriak** izanik ere, ez dira lege zibilen printzipio gisa erabili behar. Iñaki Iñurrieta

-Ez!, gurean geroz eta gutxiago dira ohitura **errespetagarri** horiek -erantzuten du Bigak, kokotsa guztiz eroria. Josetxo Azkona

Ingurumenarekiko eta langileen bizi kalitatearekiko **errespetagarria** den arkitektura. Berria - Kultura

Berez, badauka zilegitasuna aldarrikapen horrek, modu demokratikoan eta **errespetagarrian** egiten bada. Berria - Euskal Herria

3 (adizlagun baten ezkerrean)

Definizio hagitz **errespetagarri** batzuen arabera, estatuak ezkutuan egindakoari ere terrorismo dei omen dakioke, estatuak agerian egiten duenari ez bezala. Iñaki Segurola

Eskolan ere, nahiz ez dudan nik euskararen egiazko debekurik ezagutu beste ainitzek bezala, ez nuen bizkitartean egundaino entzuna, mintzaira bat zela euskara, beste mintzairen parekoa eta zinez **errespetagarria** ere, bat balinbazen. Herria

Guztiz **errespetagarria** da erabaki hori. Berria - Harian

Manifestaziora ez deitzea erabaki duten alderdien jarreraren inguruan, Erraztik adierazi zuen guztiz **«errespetagarria»** iruditzen zaiola, «baina oso zaila da jarrera hori justifikatzea, benetako arrazoirik ez dagoelako». Berria - Euskal Herria

4 (adizlagun gisa)

Senar-emazteak ageri ziren, txit **errespetagarri**, biak beltzez jantzirik, urre koloreko markoetan. Karlos Zabala

Amerikan, haren ustez, Espainian baino hobeto hitz egiten dute gaztelaniaz, zuzenago, **errespetagarriago**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da errespetagarria (3); **errespetagarri bat** (3); **errespetagarri eta** (4); **errespetagarria eta** (3); **errespetagarria izan** (4); **errespetagarriak dira** (3); **eta errespetagarria** (3); **eta errespetagarriak** (4); **oso errespetagarriak** (3)

---

errespetagarritasun *iz* errespeetagarria denaren nolakotsuna.

Gaur egun, adinean sartuta egoteak ez dakar nahitaez **errespetagarritasuna** berekin. Antton Olano

Errespetagarritasun [...]: Buru soil baten eta banku kontu baten amodioen emaitza. Xabier Olarra

Lekuaren **errespetagarritasunak** Angeli beherakadatxoa eragiten dio. Edorta Jimenez

Andre Leonardak bere **errespetagarritasun** sozialari zegozkionetarako baizik ez zuen sentiberatasunik. Josu Zabaleta

---

errespetarazi, errespetaraz, errespetarazten du *ad* errespetatzera behartu.

Erresuma Batuko gaixo batek bere nahia **errespetaraztea** lortu du. Berria - Gaiak

Tamainaz txikia izan arren, bere burua **errespetarazten** duen jokalaria da. Berria - Kirola

Ismail Haniak atzo adierazi zuen «legea eta ordena» **errespetarazi** nahi dituela kaleetan. Berria - Mundua

Legea zuzena bada, nola **errespetarazi**? Herria

Jaunak seme-alaben gainetik **errespetarazten** du aita, amaren aginpidea ezartzen umeen gain. Elizen arteko biblia

Cabrerak, berriz, berak errespetatu ez ezik, omen, "girien" artean **errespetarazi** ere egingo omen zuen. Txillardegi

Karlomagnok nazioari eman zion indarrak hainbestean iraun zuen Luis Errukitsuarekin, Estatuak bere handitasunari eutsi ahal izan ziezaion, eta atzerritarrek **errespetaraz** zezaten. Iñaki Iñurrieta

Turkia EBn sartzea onuragarria litzateke kurduentzat, aukera emango bailieke euren nortasuna aldarrikatzeko eta euren nazio eskubideak **errespetarazteko**. Berria - Mundua

Estatu frantsesari begira Euskal Herriaren ahotsa entzunarazteko eta **errespetarazteko** premia daukagu. Berria - Euskal Herria

Gogora zaitez zazpigarren egunaz, zure auzoari osorik **errespetarazteko**. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errespetarazi nahi (3); **eskubideak errespetarazteko** (5)

---

errespetatu, errespeta(tu), errespetatzen **1** du *ad* errespetua edo begirunea izan. (pertsonei)

Aita **errespetatzen** duenak bizitza luzea izango du. Elizen arteko biblia

Ama **errespetatzen** ez duen neskatxak ez baitu bere burua **errespetatuko**. Jon Muñoz

Aitamak behar direla ohoratu, maitatu, **errespetatu** eta lagundu. Herria

Uste nuen emakume onest bat **errespetatuko** zenuela. Jon Muñoz

Biziki mintzen da berak **errespetatzen** ez dituenek begitan hartzen dutelako. Jose Morales

Gizaki guztiak berdinak garela, libreak garela, elkar **errespetatu** behar dugula esanez, nagusitasuna, indarra eta garaipena kondenatu eta erruki, ahultasun, anaitasun eta berdintasunarekin ordezkatu ditu. Askoren artean

Erakutsi dute mintza daitekeela goxoki, bakoitzak bere iritziak emanez, bainan beti bertzea **errespetatuz**. Herria

Gizon zintzo eta zuzena duk, Jainkoa **errespetatu** eta gaiztakeriatik urruti dabilena. **Errespetatu** Jauna zeuen Jainkoa eta zerbitza ezazue, bizi zaitezte berari atxikiak eta zin egin beraren izenean. Elizen arteko biblia

Jauna **errespetatzea** da zuhurtziaren ikasbidea; apaltasuna lehenengo, ohorea gero. Elizen arteko biblia

Bere burua gaitzesten duena, nork zuzenetsiko? Nork **errespetatuko** bere burua mesprezatzen duena? Elizen arteko biblia

-Apezak eta jendarmeak **errespeta** itzan! Itxaro Borda

2 (bestelakoei)

Bazituzten hainbat elementu arkitektoniko **errespetatu** beharrekoak, hala nola sabai garaiak, horma osoko leihate arkudunak. Patxi Iturritegi

Zure eskubideak **errespetatzen** ditut, ez ordea nire betebeharretarik salbuetsia izateko heineraino. Jon Muñoz

Herri baten memorioa, Historioa, herri baten ondarea **errespetatzen** ez delarik, ez direla ere jendeak, haien ideiak, haien sinesteak **errespetatzen**. Michel Oronoz

Ez huen haren nahia **errespetatu** ; ez huen Grosrouvre zintzo maitatu. Jon Muñoz

Badakit halere, denek badakite, botere batek ez duela hitza **errespetatzen** , indarra baizik. Piarres Aintziart

Gehiago direla legea **errespetatzen** duten gizonak, hausten dutenak baino. Juan Martin Elexpuru

Legeak **errespetatuz** bizi dena apatikoa da, eta bestea, heroia. Itxaro Borda

Piraten erasoa erabateko sorpresa izan zen: Kako-okerrek, eskrupulurik gabeko horrek, arauak **errespetatu** gabe jokatu zuen. Julen Gabiria

Ez zen jiratu, une hunkigarria behar zuen hartan ere bere buruari ezarritako segurtasun-arauak **errespetatu** zituen. Anjel Lertxundi

Auzitegiko espertak ere baieztatzen du legeak finkatutako arrabots neurria **errespetatua** dela. Herria

Errendizio ituna **errespetatuko** dutela agindu zioten ofizial italiarrek. Jokin Urain

Ez dik inoren agindurik **errespetatzen** . Txillardegi

Beti uzten diozue berari lan hori, nolabaiteko hierarkia **errespetatuz** . Lourdes Oñederra

Gure gustuak, gure gurariak **errespetatu** behar al dira bakarrik? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ideien ordena **errespetatu** . Askoren artean

Sistema integratzaileak, izan ere, norbanakoen eta komunitateen artean kodeak eta komunikazio espazioak ezarriz ezberdintasuna **errespetatzen** dutenak dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Aristotelesen irizpidea, ordea, edozein teoria baino lehenagoko sen ona **errespetatzea** izan zen. Askoren artean

Hasieran bera bakarrik joaten zen limosna bila, bai bere buruari uko egiteagatik, bai anaien lotsa **errespetatzeagatik** . Askoren artean

Haurdunaldia etetea erabakitzen badu, besteok **errespetatu** egin behar dugu erabakia. Luis Elberdin

Josuek bake-hitzarmena egin zuen haiekin, bizia **errespetatuko** ziela aginduz. Elizen arteko biblia

Zorionekoa zuzenbidea **errespetatu** eta etengabe justizia egiten duena! Elizen arteko biblia

Izan begirune gurasoei, eta **errespetatu** nik aginduriko atseden-eguna. Elizen arteko biblia

3 (adizlagun baten eskuinean)

Zaila da sozialki **errespetatzen** den kreazioa mundura helaraztea emazte batendako. Ana Urkiza

Hain da handia egun horren santutasuna, ezen Jainkoak jurisdikzio badaezpadako eta exkaxa duen lekuetan ere, adibidez, itsasoratzen (eta bertan hondoratzen) direnen artean, zorrozki **errespetatua** den. Xabier Olarra

Alde bat aditzen dugu hor gaindi tokian tokiko jendeen eskubideak behar direla gero eta hobeki **errespetatu** eta guk preseski ez dugu besterik eskatzen!Ongiak indarra baino zerbait gehiago behar du, eta hori ordena da: jakintsuenak dira ordena hobekien **errespetatzen** dutenak, dio Sokratesek. Herria

Irakurleak aspalditik sumatuko zuen, Merteuil andrearen ohituren karietara, zeinen gutxi **errespetatzen** zuen erlijioa. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitortu eta errespetatu (6); **akordioa errespetatu** (3); **aniztasuna errespetatu** (3); **arauak errespetatu** (15); **arauak errespetatu behar** (5); **arauak errespetatu gabe** (4); **askatasuna errespetatu** (3); **aurkaria errespetatu** (4); **bat errespetatu** (4); **batzuk errespetatu** (3); **berak errespetatu** (3); **bere erabakia errespetatu** (3); **beti errespetatu** (8); **beti errespetatu izan** (3); **bezala errespetatu** (3); **borondatea errespetatu** (34); **borondatea errespetatu behar** (10); **borondatea errespetatu beharko** (3); **borondatea errespetatu beharra** (3); **da eta errespetatu** (3); **debekua errespetatu** (4); **dela errespetatu** (3); **demokratikoak errespetatu** (3); **dena errespetatu** (3); **du errespetatu** (3); **duena errespetatu** (7); **duena errespetatu behar** (5); **dute errespetatu** (3); **dutena errespetatu** (3); **emaitzak errespetatu** (4); **emandako hitza errespetatu** (3); **erabaki hori errespetatu** (3); **erabakia errespetatu** (22); **erabakia errespetatu behar** (7); **erabakia errespetatu egin** (4); **erabakiak errespetatu** (8); **erabakiak errespetatu behar** (6); **erabakitakoa errespetatu** (3); **erabakitzeko eskubidea errespetatu** (3); **erakundeek errespetatu** (3); **ere errespetatu** (11); **ere errespetatu behar** (3)

errespetatu arren (4); **errespetatu behar** (181); **errespetatu behar da** (21); **errespetatu behar dela** (21); **errespetatu behar dira** (19); **errespetatu behar direla** (20); **errespetatu behar ditu** (12); **errespetatu behar dituela** (4); **errespetatu behar dituzte** (7); **errespetatu behar du** (13); **errespetatu behar duela** (7); **errespetatu behar dugu** (6); **errespetatu behar dute** (6); **errespetatu behar dutela** (7); **errespetatu beharko** (48); **errespetatu beharko ditu** (3); **errespetatu beharko dituzte** (5); **errespetatu beharko du** (4); **errespetatu beharko dute** (8); **errespetatu beharko dutela** (4); **errespetatu beharra** (26); **errespetatu beharra dago** (10); **errespetatu beharra dagoela** (4); **errespetatu beharraz** (3); **errespetatu beharreko** (10); **errespetatu beharrekoa** (7); **errespetatu beharrekoa da** (3); **errespetatu beharrekoak** (3); **errespetatu besterik** (3); **errespetatu da** (4); **errespetatu dezaten** (3); **errespetatu ditut** (3); **errespetatu du** (4); **errespetatu dute** (6); **errespetatu egin** (54); **errespetatu egin behar** (42); **errespetatu egin beharko** (5); **errespetatu egingo** (11); **errespetatu egiten** (22); **errespetatu egiten du** (3); **errespetatu egiten duela** (4); **errespetatu egiten zuen** (3); **errespetatu ere** (3); **errespetatu eta** (52); **errespetatu eta bete** (4); **errespetatu eta gaiztakeriatik** (3); **errespetatu ez** (17); **errespetatu ez izana** (4); **errespetatu ezean** (8); **errespetatu gabe** (20); **errespetatu izan** (8); **errespetatu leloa** (4); **errespetatu leloarekin** (3); **errespetatu lelopean** (11); **errespetatu nahi** (17); **errespetatu nahi dugu** (3); **errespetatu nahian** (3); **errespetatu nik** (4); **errespetatu nik aginduriko** (3); **errespetatu salatu** (3); **errespetatu zituen** (3); **errespetatu zituzten** (5); **errespetatu zuen** (4); **errespetatu zuten** (3)

errugabetasun presuntzioa errespetatu (3); **eskubide guztiak errespetatu** (5); **eskubide hori errespetatu** (3); **eskubidea errespetatu** (12); **eskubidea errespetatu behar** (5); **eskubideak errespetatu** (40); **eskubideak errespetatu behar** (14); **eskubideak errespetatu beharko** (3); **eskubideak errespetatu egin** (4); **eskubideak errespetatu eta** (3); **eskubideak errespetatu ezean** (4); **eta errespetatu** (38); **eta errespetatu behar** (8); **eta errespetatu egin** (8); **eta errespetatu egiten** (3); **eta errespetatu lelopean** (4); **eta hori errespetatu** (4); **ez du errespetatu** (3); **gain gainetik errespetatu** (3); **gainetik errespetatu** (3); **gidoia errespetatu** (3); **giza eskubideak errespetatu** (11); **gizartearen borondatea errespetatu** (7); **guztiak errespetatu** (7); **guztiak errespetatu behar** (6); **guztiek errespetatu** (5); **herri borondatea errespetatu** (5); **herriaren borondatea errespetatu** (6); **herriaren hitza errespetatu** (3); **herritarren borondatea errespetatu** (4); **herritarren erabakia errespetatu** (7); **herritarren hitza errespetatu** (5); **hitza errespetatu** (13); **hitza errespetatu behar** (5); **hori errespetatu** (24); **hori errespetatu behar** (6); **hori errespetatu beharko** (4); **hori errespetatu egin** (6); **horiek errespetatu** (6); **ingurumena errespetatu** (4); **jainkoa errespetatu** (3); **jainkoa errespetatu eta** (3); **joko arauak errespetatu** (7); **legea errespetatu** (9); **legea errespetatu behar** (5); **legedia errespetatu** (4); **nahia errespetatu** (6); **neurriak errespetatu** (3); **oinarrizko eskubideak errespetatu** (4); **onartu eta errespetatu** (3); **presoen eskubideak errespetatu** (4); **presuntzioa errespetatu** (3); **ulertu eta errespetatu** (3)

akordioa errespetatua (3); **akordioa errespetatua izan** (3); **borondatea errespetatua** (4); **borondatea errespetatua izan** (3); **da errespetatua** (3); **erabaki hori errespetatua** (3); **erabakia errespetatua** (6); **erabakia errespetatua izan** (3); **errespetatua dela** (3); **errespetatua den** (4); **errespetatua eta** (3); **errespetatua izan** (24); **errespetatua izan dadin** (11); **errespetatua izan zedin** (3); **errespetatua izateko** (9); **errespetatuak eta** (3); **errespetatuak izan** (23); **errespetatuak izan daitezen** (14); **eskubide guztiak errespetatuak** (3); **eskubideak errespetatuak** (12); **eskubideak errespetatuak izan** (10); **eta erabakia errespetatua** (4); **eta errespetatua** (5); **eta errespetatuak** (4); **eta errespetatuak izan** (3); **guztiak errespetatuak** (3); **hori errespetatua** (4); **hori errespetatua izan** (3)

beti errespetatuko (3); **borondatea errespetatuko** (13); **borondatea errespetatuko duela** (4); **dena errespetatuko** (4); **duena errespetatuko** (3); **dutena errespetatuko** (3); **erabakia errespetatuko** (12); **erabakia errespetatuko duela** (5); **erabakitakoa errespetatuko** (4); **errespetatuko balu** (3); **errespetatuko dira** (4); **errespetatuko diren** (4); **errespetatuko dituela** (6); **errespetatuko dituen** (11); **errespetatuko dituena** (4); **errespetatuko dituzte** (3); **errespetatuko dituztela** (3); **errespetatuko du** (4); **errespetatuko duela** (25); **errespetatuko duen** (15); **errespetatuko dugu** (6); **errespetatuko dute** (9); **errespetatuko dutela** (12); **errespetatuko duten** (5); **errespetatuko zuela** (5); **errespetatuko zutela** (3); **eskubide guztiak errespetatuko** (3); **eskubidea errespetatuko** (6); **eskubidea errespetatuko duen** (3); **eskubideak errespetatuko** (12); **eskubideak errespetatuko dituen** (6); **eta errespetatuko** (3); **giza eskubideak errespetatuko** (3); **guztiak errespetatuko** (6); **herritarren borondatea errespetatuko** (4); **hori errespetatuko** (3); **ingurumena errespetatuko** (3); **nahia errespetatuko** (5)

arauak errespetatuta (4); **arauak errespetatuz** (11); **borondatea errespetatuz** (4); **elgar errespetatuz** (4); **erabakia errespetatuz** (4); **erabakiak errespetatuz** (3); **erabat errespetatuz** (4); **errespetatuz egin** (7); **errespetatuz egin behar** (7); **errespetatuz eta** (14); **errespetatuz gero** (4); **eskubideak errespetatuz** (11); **eskubideak errespetatuz eta** (3); **eta erabakia errespetatuz** (4); **giza eskubideak errespetatuz** (5); **guztiak errespetatuz** (6); **hori errespetatuz** (3); **ingurumena errespetatuz** (4); **joko arauak errespetatuz** (5); **konstituzioa errespetatuz** (8); **legea errespetatuz** (6); **legeak errespetatuz** (3); **politiko guztiak errespetatuz** (3); **printzipioak errespetatuz** (3)

aniztasuna errespetatzea (3); **arauak errespetatzea** (5); **bizia errespetatzea** (3); **borondatea errespetatzea** (11); **borondatea errespetatzean** (3); **demokratikoaren emaitzak errespetatzea** (3); **dutena errespetatzea** (3); **emaitzak errespetatzea** (3); **erabakia errespetatzea** (12); **erabakia errespetatzea dela** (3); **errespetatzea baino** (3); **errespetatzea da** (16); **errespetatzea dela** (6); **errespetatzea ere** (3); **errespetatzea eskatu** (5); **errespetatzea eskatu zuen** (4); **errespetatzea eta** (24); **errespetatzea ez** (3); **errespetatzea ezinbestekoa** (3); **errespetatzea ezinbestekoa dela** (3); **errespetatzea ezinbestekotzat** (3); **errespetatzea ezinbestekotzat jo** (3); **errespetatzea galdegin** (5); **errespetatzea izan** (4); **errespetatzea leporatu** (4); **errespetatzea leporatzen** (3); **errespetatzea nahi** (4); **errespetatzean datza** (3); **errespetatzean datzala** (4); **errespetatzearen alde** (7); **errespetatzearen aldeko** (6); **eskubide guztiak errespetatzea** (4); **eskubidea errespetatzea** (5); **eskubideak errespetatzea** (32); **eskubideak errespetatzea eta** (5); **eskubideak errespetatzean** (3); **eskubideak errespetatzearen** (5); **eskubideak errespetatzearen alde** (3); **eskubideak ez errespetatzea** (6); **eta erabakia errespetatzea** (6); **eta errespetatzea** (9); **ez errespetatzea** (27); **ez errespetatzea ere** (3); **ez errespetatzea leporatu** (4); **ez errespetatzea leporatzen** (3); **ez errespetatzeagatik** (6); **ez errespetatzearen** (4); **giza eskubideak errespetatzea** (8); **guztiak errespetatzea** (7); **herriaren hitza errespetatzea** (3); **herritarren borondatea errespetatzea** (6); **hitza errespetatzea** (6); **hizkuntz eskubideak errespetatzea** (3); **hori errespetatzea** (7); **islama ez errespetatzea** (3); **jauna errespetatzea** (5); **jauna errespetatzea da** (4); **joko arauak errespetatzea** (3); **legea errespetatzea** (4); **legeak errespetatzea** (4); **oinarrizko eskubideak errespetatzean** (3); **presoen eskubideak errespetatzea** (3); **presoen eskubideak errespetatzearen** (3)

adierazpen askatasuna errespetatzeko (3); **akordioa errespetatzeko** (5); **akordioak errespetatzeko** (7); **aniztasuna errespetatzeko** (6); **arauak errespetatzeko** (4); **askatasuna errespetatzeko** (3); **autodeterminazio eskubidea errespetatzeko** (3); **borondatea errespetatzeko** (23); **borondatea errespetatzeko eskatu** (4); **borondatea errespetatzeko prest** (3); **duena errespetatzeko** (7); **duena errespetatzeko prest** (3); **dutena errespetatzeko** (11); **emaitzak errespetatzeko** (6); **erabakia errespetatzeko** (19); **erabakia errespetatzeko eskatu** (6); **erabakia errespetatzeko konpromisoa** (3); **erabakiak errespetatzeko** (5); **erabakiko dutena errespetatzeko** (4); **erabakitzeko eskubidea errespetatzeko** (4); **erabakitzen duena errespetatzeko** (3); **erabakitzen dutena errespetatzeko** (7)

errespetatzeko beharra (5); **errespetatzeko beharra ere** (3); **errespetatzeko borondatea** (7); **errespetatzeko borondatea erakutsi** (3); **errespetatzeko borondaterik** (5); **errespetatzeko borondaterik ez** (4); **errespetatzeko deia** (11); **errespetatzeko deia egin** (5); **errespetatzeko ere** (11); **errespetatzeko ere eskatu** (3); **errespetatzeko eskatu** (82); **errespetatzeko eskatu die** (4); **errespetatzeko eskatu dio** (13); **errespetatzeko eskatu diote** (5); **errespetatzeko eskatu du** (5); **errespetatzeko eskatu dute** (4); **errespetatzeko eskatu zien** (10); **errespetatzeko eskatu zion** (18); **errespetatzeko eskatu zuen** (11); **errespetatzeko eskatu zuten** (5); **errespetatzeko eskatuko** (5); **errespetatzeko eskatzen** (14); **errespetatzeko eta** (24); **errespetatzeko exijitu** (4); **errespetatzeko konpromisoa** (14); **errespetatzeko konpromisoa hartu** (8); **errespetatzeko prest** (16); **errespetatzeko prest dagoen** (4); **errespetatzeko urratsak** (3)

errugabetasun presuntzioa errespetatzeko (5); **eskubide guztiak errespetatzeko** (5); **eskubidea errespetatzeko** (15); **eskubidea errespetatzeko eskatu** (4); **eskubideak errespetatzeko** (46); **eskubideak errespetatzeko borondaterik** (3); **eskubideak errespetatzeko eskatu** (11); **eskubideak errespetatzeko eskatzen** (4); **eskubideak errespetatzeko eta** (3); **eta erabakia errespetatzeko** (4); **eta errespetatzeko** (12); **eta errespetatzeko konpromisoa** (3); **eta politikoak errespetatzeko** (3); **euskara errespetatzeko** (3); **ez errespetatzeko** (4); **ezarri eta errespetatzeko** (3); **giza eskubideak errespetatzeko** (11); **gizartearen borondatea errespetatzeko** (3); **guztiak errespetatzeko** (8); **herri borondatea errespetatzeko** (5); **herri eskubideak errespetatzeko** (3); **herriaren borondatea errespetatzeko** (5); **herriaren hitza errespetatzeko** (4); **herritarren borondatea errespetatzeko** (5); **herritarren erabakia errespetatzeko** (6); **herritarren hitza errespetatzeko** (4); **hitza errespetatzeko** (11); **hitza errespetatzeko eskatu** (5); **hitzartutako akordioak errespetatzeko** (3); **hori errespetatzeko** (5); **ingurumena errespetatzeko** (3); **iritzia errespetatzeko** (3); **iritzia errespetatzeko eskatu** (3); **kultur aniztasuna errespetatzeko** (3); **legedia errespetatzeko** (7); **nahia errespetatzeko** (5); **nazioarteko legedia errespetatzeko** (7); **oinarrizko eskubideak errespetatzeko** (3); **politikoak errespetatzeko** (4); **presoen eskubideak errespetatzeko** (8); **presuntzioa errespetatzeko** (5)

akordioa errespetatzen (3); **aniztasuna errespetatzen** (3); **arauak errespetatzen** (14); **arauak errespetatzen badituzte** (3); **araudia errespetatzen** (3); **askatasuna errespetatzen** (3); **aurkaria errespetatzen** (3); **autonomia errespetatzen** (6); **autonomia errespetatzen zen** (3); **baldintza horiek errespetatzen** (3); **baldintzak errespetatzen** (3); **borondatea errespetatzen** (18); **borondatea errespetatzen ez** (10); **burua errespetatzen** (3); **dela errespetatzen** (4); **demokratikoak errespetatzen** (3); **dira errespetatzen** (3); **direla errespetatzen** (4); **ditu errespetatzen** (6); **dituela errespetatzen** (4); **dituelako errespetatzen** (4); **dituzte errespetatzen** (7); **dituztela errespetatzen** (3); **du errespetatzen** (4); **duela errespetatzen** (4); **dute errespetatzen** (6); **dutela errespetatzen** (4); **dutena errespetatzen** (3); **elkar errespetatzen** (4); **erabakia errespetatzen** (20); **erabakia errespetatzen duela** (10); **erabakia errespetatzen dutela** (5); **erabat errespetatzen** (4); **ere errespetatzen** (7); **ere errespetatzen ez** (3)

errespetatzen bada (5); **errespetatzen badira** (5); **errespetatzen baditu** (4); **errespetatzen baditugu** (3); **errespetatzen badituzte** (4); **errespetatzen badu** (4); **errespetatzen badute** (3); **errespetatzen da** (5); **errespetatzen dela** (4); **errespetatzen den** (4); **errespetatzen dira** (3); **errespetatzen direla** (4); **errespetatzen diren** (11); **errespetatzen ditu** (7); **errespetatzen dituela** (20); **errespetatzen dituela esan** (3); **errespetatzen dituen** (10); **errespetatzen ditugu** (7); **errespetatzen ditut** (12); **errespetatzen dituzte** (3); **errespetatzen dituztela** (5); **errespetatzen dituzten** (6); **errespetatzen du** (18); **errespetatzen dudalako** (3); **errespetatzen duela** (38); **errespetatzen duela adierazi** (8); **errespetatzen duela azpimarratu** (3); **errespetatzen duela dio** (5); **errespetatzen duela esan** (4); **errespetatzen duen** (22); **errespetatzen duena** (6); **errespetatzen dugu** (9); **errespetatzen dut** (7); **errespetatzen dute** (10); **errespetatzen dutela** (15); **errespetatzen dutela adierazi** (3); **errespetatzen duten** (10); **errespetatzen dutenak** (3); **errespetatzen eta** (17); **errespetatzen eta bermatzen** (3); **errespetatzen ez** (78); **errespetatzen ez bada** (6); **errespetatzen ez badu** (4); **errespetatzen ez dituen** (7); **errespetatzen ez duen** (7); **errespetatzen ez duena** (4); **errespetatzen ez duenak** (3); **errespetatzen ez duten** (5); **errespetatzen ikasi** (3); **errespetatzen jakin** (4); **errespetatzen jakin behar** (4); **errespetatzen ote** (3); **errespetatzen salatu** (9); **errespetatzen salatu du** (4); **errespetatzen salatu zuen** (3); **errespetatzen zen** (6); **errespetatzen zituen** (6); **errespetatzen zuela** (5); **errespetatzen zuen** (10); **errespetatzen zuten** (5)

eskubide guztiak errespetatzen (5); **eskubidea errespetatzen** (9); **eskubideak errespetatzen** (40); **eskubideak errespetatzen diren** (5); **eskubideak errespetatzen dituela** (5); **eskubideak errespetatzen dituen** (3); **eskubideak errespetatzen dituzten** (3); **eskubideak errespetatzen ez** (7); **eta errespetatzen** (32); **eta errespetatzen du** (3); **eta errespetatzen duela** (5); **eta errespetatzen duen** (4); **eta errespetatzen ez** (3); **ez dela errespetatzen** (4); **ez direla errespetatzen** (4); **ez ditu errespetatzen** (6); **ez dituela errespetatzen** (4); **ez dituelako errespetatzen** (4); **ez dituzte errespetatzen** (7); **ez dituztela errespetatzen** (3); **ez du errespetatzen** (4); **ez duela errespetatzen** (4); **ez dute errespetatzen** (6); **ez dutela errespetatzen** (4); **gehiago errespetatzen** (4); **gehien errespetatzen** (4); **giza eskubideak errespetatzen** (19); **gizartearen borondatea errespetatzen** (4); **guk errespetatzen** (3); **guziak errespetatzen** (3); **guztiak errespetatzen** (17); **guztiak errespetatzen diren** (3); **haien eskubideak errespetatzen** (3); **hartutako erabakia errespetatzen** (3); **herri borondatea errespetatzen** (4); **hori errespetatzen** (9); **horiek errespetatzen** (8); **ingurumena errespetatzen** (8); **ingurumena errespetatzen duela** (3); **ituna errespetatzen** (3); **jauna errespetatzen** (3); **joko arauak errespetatzen** (3); **konstituzioa errespetatzen** (5); **konstituzioa errespetatzen ez** (3); **kultura errespetatzen** (4); **legea errespetatzen** (7); **legeak errespetatzen** (7); **legedia errespetatzen** (5); **maite eta errespetatzen** (4); **mugak errespetatzen** (4); **nafarroa errespetatzen** (5); **nahia errespetatzen** (3); **natura errespetatzen** (3); **nazioarteko legedia errespetatzen** (4); **oinarrizko eskubideak errespetatzen** (3); **onartu eta errespetatzen** (7); **onartzen eta errespetatzen** (3); **politikoa errespetatzen** (3); **subiranotasuna errespetatzen** (3)

errespetatzera behartuko (3); **errespetatzetik etorriko** (3)

---

errespetatzaile *izond* errespetatzen duena.

Egia baldin bada [...] gehiago direla legea errespetatzen duten gizonak, hausten dutenak baino, ondo neurtu behar da errugabea torturatzeko arriskua, gizon horrek askoz ere aukera gehiago duelako, batenaz beste, lege **errespetatzaile** izateko, mesprezatzaile baino. Juan Martin Elexpuru

---

errespetatze *iz* errespetua izatea.

Ikusi zuenean txanda **errespetatze** hutsak astero jatena, eta segurua, emango ziola, bila eta harrapazka ibili gabe, jentilak baiezkoa eman zuen. Pako Aristi

---

errespeto ik **errespetu**.

---

errespetogabekeria ik **errespetugabekeria**.

---

errespetu 1 *iz* begirunea.

Izan begirune Jainkoari eta **errespetua** erregeari. Elizen arteko biblia

Nire zibilizazioak, Jainkoaren oinordeko, norbere buruaren **errespetua** ere predikatu du, Gizona bere bitartez errespetatzea, alegia. Josu Zabaleta

Eskuizkribu bat ez da hortzetako eskuila erabili bat bezala botatzeko gauza: paper idatziari **errespetua** izaten zaio, eta mundu guztiak daki idazlearentzat balio subjektibo handikoa izan daitekeela. Ramon Saizarbitoria

Bistan da Bush bera ez dela hortarik ari Amerikan berean, eta ere ONUko nazioneen batasunari **errespetu** ekarri beharko zaiola egun batez. Herria

Kontua da gure belaunaldikook **errespetua** izan geniola, faxismoaren aurka militante ezkertiar zintzoa izan zelako, eta **errespetu** bera lortu zuela, komunismoaz leporaino eginda, liberalismoaren alde suhartasun eta zintzotasun berarekin jarri zenean ere. Ramon Saizarbitoria

Hilaren gorputza ez dela nola nahika trata ditaken "zerbait"; hartze du estimu eta **errespetu**. Herria

Orain ulertzen dut zergatik zeuden norbanakoak, nornahi ere zirela, eginbehar berberen mende eta legeen **errespetu** berbera izatera beharturik. Josu Zabaleta

Inondik inora ere ez zuten halako **errespeturik** erakusten gainontzeko umeekin. Julen Gabiria

Ongi zagok behekoari jakinaraztea ezen begirunea eta **errespetua** zor diola goikoari. Joan Mari Irigoien

Ez du **errespeturik** merezi Arrojok. Edurne Elizondo

Baita bere izaera adeitsua ere, besteen **errespetuan** oinarritzen zena. Askoren artean

Jendeak **errespetuz** tratatuko zuen orduan. Irene Aldasoro

Jaunak, ordea, hain ugari zion emana bere grazia, non ikusten edo entzuten zioten guztiek, edozein klase edo gizarte-mailakoek, **errespetuz** eta benerazioz hartzen baitzuten. Askoren artean

Ez zela hain antiklerikala, **errespetuzko** zer bat gordetzen ziola elizari. Karlos Linazasoro

Adaren jarrera, **errespetuzkoa** baino, hotza zen, urrutiramenduak eragina. Anjel Lertxundi

Hagitz gauza begiragarri eta **errespetuzkoa** delakoan, bizia ematea ez da gauza eskasena, merkeena eta errazena baizik. Iñaki Segurola

Nire galdekizun lagunkoi baina jakin-minekoak ere ez zituen inoiz erantzuten, zenduarenganako **errespetuz**, batik bat. Karlos Linazasoro

Leiho-aho biak zabaldu ditu gero parez pare, nire marrantarekiko batere **errespeturik** gabe. Anjel Lertxundi

Nehork ez dit hemen aurpegi batek inspiratu dizkidan **errespetu** gabeko oharrak aurpegiratuko. Piarres Aintziart

Meza entzuten ari diren eliztarren jarrera **errespeturik** gabekoa iruditzen bazaio, atera gordelekutik eta zirti-zartaka hasten da. Bernardo Atxaga

Errespetuak badauka bere baitan beldurra. Piarres Aintziart

Esadazu, beraz, eredu horren arabera ezarri behar ote ditudan giza abereen artean **errespetua** eta zuzenbidea. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gratien presuna ixila eta denentzat **errespetu** handikoa, denentzat ere etsenplu paregabea. Herria

Zorigaitzez, jauregiak badu anitz sofriturik, nahiz eta **errespetu** haundiena mereziko zuen bere sabelean dauzkan oroitzapenen gatik, mendez mende bizi izan dituenengatik. Michel Oronoz

Euskaldunon hizkuntza eskubideek inoiz baino **errespetu** handiagoa dute. Pello Salaburu

Piratek, **errespetu** handiz, albo batera egiten zuten Kako-oker ondotik pasatzerakoan. Julen Gabiria

Ezta **errespetu** minimorik ere! Ramuntxo Etxeberri

Zuhaur, adiskide ederra, **errespetu** santu batek hartuko zaitu, eta erranen duzu gogo beroz: "Horra nire bihotzaren araberako gizona". Jon Muñoz

Erretiratu egin zen, **errespetu** osoz. Anjel Lertxundi

Zuri dizudan **errespetu** sakonaz. Jon Muñoz

Itxurazko **errespetu** eder batekin. Iñaki Segurola

Hirietan ibilian ibili ohi zen jende hura oinezko bihurtuta dago gaur, eta oinezkoentzako baxter mehe eta berdegune izenekoetan errenditzen ikasia, **errespetu** ederrean. Iñaki Segurola

Komisarioak bazekien hori, egona baitzituen Alemanian eta entzunak baitzituen alemanen kontzertuak, eta txunditurik geratu ere bai, alemanek musikari, beren musikari, zioten **errespetu** ia sakratuaz. Felipe Juaristi

Zeren jendaila txepelak **errespetu** edo beldur sakratu batekin onesten baitu arrakastaduna. Iñaki Segurola

Haurrak hezteko modua eta elkarrenganako **errespetua** batek era batean ikusten badu eta besteak beste batera. Luis Elberdin

Iruditu izan zait beldurrak ez ezik [...] gehiegizko **errespetuak** ere behartzen ninduela txintik esan gabe bere zama pairatzera. Ramon Saizarbitoria

3 (hitz elkartuetan)

Errespetu falta iruditzen zaidak! Teresa hilzorian eta zuek borrokan! Bernardo Atxaga

Absurdoa da orain, semea ez dagoenean, **errespetu**-itxura hauekin hastea. Pako Aristi

Amaieran eskaini nahi izan diogun **errespetu**-erakustaldi txiki bat izan da. Julen Gabiria

4 *errespetu ez*

Aporian zetzan sistemaren sadismo haren mukurua: **errespetu eza** zekarren errespetuak. Joxan Elosegi

Azterketa eguna baino hilabete lehenago eman dute erabakiaren berri, ikasleekiko **errespetu eza** eta mespretxua erakutsiz. Berria - Euskal Herria

Basauriko PPko zinegotzi Jose Maria Aguerosek esan zuen erasotzaileek «demokraziari eta giza eskubideei dieten **errespetu eza**» ikusten dela halako erasoekin. Berria - Euskal Herria

Idazleak hizkuntza horretan lana egiteari eskaini dion denbora alferrikakotzat jotzeak erakusten duen **errespetu ezaz** aparte, galderak beste murmurio bat zabaltzen du bazterretan, hitzez esan ez dena baina entzun dezakeguna. Berria - Kultura

Eta halaxe kontatu nuen, ez **errespetu ezagatik**, garaiak zenbat aldatu diren adierazteko baizik, hitzetan bakarrik bada ere. Pako Aristi

· Ez naiz egundaino hoin urrun joan **errespetuezean**. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina errespetu (6); **du errespetu** (5); **duen errespetu** (4); **elgarren errespetu** (5); **ere errespetu** (6); **errespetu apur** (4); **errespetu apur bat** (4); **errespetu bat** (13); **errespetu bera** (8); **errespetu diola** (3); **errespetu edo** (3); **errespetu eskasa** (6); **errespetu eske** (3); **errespetu eta** (32); **errespetu eza** (5); **errespetu falta** (42); **errespetu falta da** (3); **errespetu faltarik** (4); **errespetu faltatzat** (5); **errespetu gehiago** (6); **errespetu gehixago** (3); **errespetu guti** (3); **errespetu gutxi** (5); **errespetu guztia** (7); **errespetu guztiarekin** (11); **errespetu handi** (3); **errespetu handia** (59); **errespetu handia diet** (3); **errespetu handia dio** (5); **errespetu handia diogu** (3); **errespetu handia diot** (10); **errespetu handia diote** (6); **errespetu handia zor** (3); **errespetu handiagoa** (15); **errespetu handiagoz** (3); **errespetu handiko** (3); **errespetu handirik** (4); **errespetu handiz** (26); **errespetu haundia** (4); **errespetu hori** (9); **errespetu osoa** (21); **errespetu osoa merezi** (6); **errespetu osoz** (25); **errespetu osoz jokatuko** (3); **errespetu pixka** (10); **errespetu pixka bat** (9); **eta errespetu** (62); **eta errespetu falta** (3); **eta errespetu handia** (10); **eta errespetu handiz** (8); **eta errespetu osoz** (4); **gure errespetu** (3); **ingurumenarekiko errespetu** (4); **nafarroarekiko errespetu** (4); **nafarroarekiko errespetu falta** (4); **nire errespetu** (6); **nire errespetu osoa** (3); **oso errespetu** (3); **zion errespetu** (4); **zioten errespetu** (4)

aitortza eta errespetua (3); **aldeko errespetua** (3); **aniztasunaren errespetua** (9); **aniztasunaren errespetua eta** (3); **arteko errespetua** (7); **askatasuna eta errespetua** (3); **aurkariari errespetua** (3); **autodeterminazio eskubidearen errespetua** (3); **baina errespetua** (8); **bere errespetua** (5); **besteen errespetua** (3); **beti errespetua** (3); **biziaren errespetua** (4); **borondatearen errespetua** (10); **borondateari errespetua** (4); **buruarenganako errespetua** (4); **dion errespetua** (6); **duen errespetua** (4); **duintasunaren errespetua** (3); **duten errespetua** (3); **elgarren errespetua** (4); **elkarren arteko errespetua** (3); **elkarrenganako errespetua** (5); **elkarri errespetua** (4); **erabakiaren errespetua** (4); **erabakiekiko errespetua** (5); **erabateko errespetua** (8); **errespetua adierazi** (6); **errespetua adierazi zion** (3); **errespetua adierazteko** (4); **errespetua agertu** (3); **errespetua aldarrikatu** (5); **errespetua aldarrikatu zuen** (3); **errespetua aldarrikatzen** (5); **errespetua bai** (5); **errespetua behar** (4); **errespetua bermatuko** (4); **errespetua bermatzeko** (4); **errespetua da** (11); **errespetua dela** (8); **errespetua dela eta** (3); **errespetua diogu** (3); **errespetua eduki** (3); **errespetua eduki behar** (3); **errespetua ematen** (6); **errespetua erakutsi** (5); **errespetua ere** (19); **errespetua eskatu** (36); **errespetua eskatu du** (8); **errespetua eskatu dute** (3); **errespetua eskatu zien** (3); **errespetua eskatu zion** (6); **errespetua eskatu zuen** (8); **errespetua eskatzeko** (4); **errespetua eskatzen** (8); **errespetua eta** (70); **errespetua eta begirunea** (4); **errespetua eta konfiantza** (3); **errespetua eta tolerantzia** (3); **errespetua ez** (3); **errespetua galdu** (10); **errespetua galduko** (3); **errespetua galtzen** (3); **errespetua irabazi** (6); **errespetua irabazteko** (4); **errespetua izan** (21); **errespetua izan behar** (10); **errespetua izango** (4); **errespetua izatea** (4); **errespetua merezi** (17); **errespetua merezi du** (4); **errespetua merezi dute** (5); **errespetua oinarri** (4); **errespetua sorrarazten** (4); **errespetua sortzen** (3); **errespetua sustatzeko** (3); **errespetua sustatzeko asmoz** (3); **errespetua zer** (3); **errespetua zion** (3); **errespetua zor** (24); **errespetua zor diogu** (6); **errespetua zor zaio** (7); **eskubide guztien errespetua** (9); **eskubidearen errespetua** (4); **eskubideekiko errespetua** (4); **eskubideen errespetua** (37); **eta errespetua** (56); **eta errespetua zor** (5); **ezberdintasunaren errespetua** (5); **giza eskubideekiko errespetua** (3); **giza eskubideen errespetua** (19); **gizartearen borondatearen errespetua** (3); **guztien errespetua** (12); **halako errespetua** (3); **herritarren borondatearen errespetua** (3); **herritarren erabakiaren errespetua** (3); **ingurumenarekiko errespetua** (5); **ingurumenaren errespetua** (3); **jendearen errespetua** (5); **legearen errespetua** (3); **oinarrizko eskubideen errespetua** (3); **zaion errespetua** (18); **zaion errespetua eta** (3); **zaioten errespetua** (3); **zor dion errespetua** (4); **zor zaion errespetua** (15); **zor zaioten errespetua** (3)

aniztasunaren errespetuan (3); **arteko errespetuan** (6); **baina errespetuz** (3); **batere errespeturik** (3); **borondatearen errespetuan** (3); **borondatearen errespetuaren** (3); **elgarren errespetuan** (5); **elkarren arteko errespetuan** (4); **erabakiaren errespetuan** (3); **errespetuak eta** (3); **errespetuak ez** (3); **errespetuak ez du** (3); **errespetuan eta** (21); **errespetuan oinarritu** (4); **errespetuan oinarrituta** (6); **errespetuan oinarritutako** (12); **errespetuan oinarritzen** (9); **errespetuan oinarritzen da** (3); **errespetuarekin bat** (3); **errespetuaren alde** (3); **errespetuaren aldeko** (6); **errespetuaren eta** (6); **errespetuaren inguruko** (3); **errespetuaren izenean** (3); **errespetuari buruzko** (5); **errespetuari eta** (3); **errespetuaz eta** (4); **errespetuaz gain** (3); **errespetuaz hitz** (6); **errespetuaz hitz egiten** (4); **errespeturik erakusten** (3); **errespeturik eta** (4); **errespeturik ez** (11); **errespeturik gabe** (8); **errespeturik handiena** (3); **errespeturik handienaz** (3); **errespetuz egin** (3); **errespetuz entzun** (4); **errespetuz eta** (21); **errespetuz eta erantzukizun** (3); **errespetuz ez** (4); **errespetuz hartu** (4); **errespetuz hartzen** (4); **errespetuz jokatu** (13); **errespetuz jokatu dute** (3); **errespetuz jokatzeko** (4); **errespetuz naiz** (5); **errespetuz tratatu** (8); **errespetuzko agur** (3); **eskubide guztien errespetuan** (3); **eskubide ororen errespetuan** (3); **eskubideen errespetuan** (6); **eskubideen errespetuaren** (7); **eskubideen errespetuari** (3); **eta errespetuak** (4); **eta errespetuan** (7); **eta errespetuaren** (3); **eta errespeturekin** (3); **eta errespeturik** (5); **eta errespetuz** (27); **eta errespetuz jokatzeko** (3); **eta errespetuz tratatu** (3); **eta errespetuzko** (5); **eta errespetuzkoa** (3); **giza eskubideen errespetuan** (3); **giza eskubideen errespetuaren** (5); **guztien errespetuan** (4); **inolako errespeturik** (3); **jarrera errespeturik** (3); **ororen errespetuan** (3); **zaien errespetuagatik** (5); **zor zaien errespetuagatik** (5); **zuhurtziaz eta errespetuz** (3)

---

errespetubako *izond* errespetugabea.

Hilerriak halako zera bat sortzen du beti, gure jarduna **errespetubakoa** suertatzen zen. Berria - Kultura

errespetugabe *izond* errespeturik ez duena.

Errezitatzaile **errespetugabearen** ondoan zeudenak barrez hasi ziren, eta gainerako ikasleek zaratatsuen talderantz begiratu zuten. Josu Zabaleta

---

errespetugabeko *izond* errespetugabea.

Eta hain zuzen ere, gorespen horregatik eta bere omenez, gure iritzia da ez dugula onartu behar inolako ekintza **errespetugabekorik**, bestelako helburua izan arren irain bat izango litzatekeelako zendutakoaren oroimenarentzat. Koldo Biguri

---

errespetuki *adlag* errespetuz.

Gozatu, ahalaz tokian tokiko jendeeri eta ohidureri **errespetuki** josiz. Herria

---

errespetutsu *izond* errespetuz betea.

Eta hain ziren **errespetutsuak**, bertzalde, beren inguruko munduarekin, non, zuhaitz bat ebaki behar izaiten zuten bakoitzean, haren enborra husteko eta, halatan, txalupa edo batel iduriko baten egiteko, barkamendua eta baimendua eskatzen baitzizkioten, trabailatzen hasi aitzin. Joan Mari Irigoien

---

errespetuzko ik **errespetu 1**.

---

erresponsabilitate ik **errespontsabilitate**.

---

errespontsabilitate *(ETCn **60** agerraldi; orobat **erresponsabilitate** ETCn **17** agerraldi) iz* erantzukizuna.

Izan ere, jauregiaren **errespontsabilitatea** gure aitaren esku utzi zuenetik, bere baitan zatiturik zegoen aitona. Joan Mari Irigoien

Emazteak ez daitezke absolbi, beren **errespontsabilitatea** baitute. Ana Urkiza

Holakotan ez da gizon baten lana bakarrik, haren kideek ere badute beren **errespontsabilitatea**, ezin ukatua. Michel Oronoz

Afrikako eliza ala hemengoa, eliza bera baita, hango ala hemengo partaide bakotxari da **erresponsabilitateen** edo ardureen hartzea, eta biharko elizaren prestatzea. Herria

Talde armatuek, euskara eta euskal herria zepo ilunetik atera aitzakiaz, euskaldunak erabaki-eskubideaz eta jende **errespontsabilitateaz** biluzi zituzten. Itxaro Borda

Baduzularik zure **erresponsabilitate** bat betetzeko, behar dituzu nunbait helburu batzu finkatu. Menane Oxandabaratz

Oposiziokoek zorrozki bipildu dute gabinete pribatu batek berriki ateraia duen ibilpen plana, baina **errespontsabilitate** zuzenik Jean Grenet-en gehiengoari leporatu gabe. Herria

---

errespontso ik **errespontsu**.

---

errespontsu *(ETCn **37** agerraldi; orobat **errespontso** ETCn **2** agerraldi) iz* hilen aldeko esaten diren otoitzen multzoa.

Euskaraz **errespontsu** bat errezatu ondoren, kanposantuko arduradunak, burdin hagak erabiliz, lauza altxatu zuen. Ramon Saizarbitoria

-Ez nuen **errespontsurik** egin, ez nuen bedeinkatu. Koldo Izagirre

Ordu horretan herriko hilerrian **errespontsua** eskainiko zaio. Berria - Euskal Herria

Apezak **errespontsuari** ekin zion. Aingeru Epaltza

Hainbeste argizari piztu eta txanponeko **errespontso** haiek denak, kandela argitan horrek, zer edo zer gomutarazten du. Pello Zabala

---

errespuesta *iz* erantzuna.

"Ez", erantzutekotan nintzen, baina nire harridurarako nire atzetik gure ile-horiak eman zuen **errespuesta** nire partez: [...]. Matías Múgica

Baina albisteez ari garelarik, ezinbestekoa dirudi w horiei **errespuesta** ematea. Iñigo Aranbarri

---

erresta *iz* kenketa.

Sumak eta **errestak** orain, multiplikazioneak eta dibisioneak gero. Joan Mari Irigoien

---

errestaka ik **herrestaka**.

---

errestan ik **herrestan**.

---

errestasun ik **erreztasun**.

---

errestatu, erresta(tu), errestatzen du *ad* erreferatu.

Atzeko koadroetatik ere **errestatu** ditut pilota batzuk. Berria - Kirola

Dejadak txapapera, lau sake jarraian **errestatu** gabe. Berria - Harian

Sakeak **errestatzen** aritu zen ongi, baina beste ezertan ez hortik aurrera. Berria - Kirola

Horregatik aritu zen eskuinez ere sakeak **errestatzen** atzo. Berria - Kirola

Partidako bigarren zatian, Eugik airez **errestatzea** erabaki zuen. Berria - Kirola

Sotamanoz **errestatuz** tantoak luzatu zituen, eta defentsan txukun jardun zen. Berria - Kirola

---

errestatzaile *iz* errestatzen duen pelotaria.

Sakeak partidaren nondik norako erabaki dezake, Lizaso sakatzaile hobea baita, baina ez da hain **errestatzaile** ona. Berria - Kirola

Biak **errestatzaile** onak badira ere, sakea izan daiteke norgehiagokako gakoa. Berria - Kirola

---

errestaurante ik **restaurant**.

---

errestauratu, errestaura(tu), errestauratzen du *ad* zaharberritu.

Amak ispiluan begiratu zuen bere burua, bere burua aitarentzat edertzeko, edo bere burua berriz ere ondo ezagutu behar balu bezala, eta orraztu egin zen, ilea **errestauratzeko**, eta etxea atondu zuen behin eta berriro. Joseba Sarrionandia

---

errestauratzaile 1 *izond/iz* errestauratzen edo zaharberritzen duena.

Memoriaren eta haurtzaroaren gomutarazlea, berreskuratzailea eta **errestauratzailea**. Ana Urkiza

2 beste erregimen politiko batek aldatu zuen errregimen politikoa berrezartzen duena.

Maria Cristina Erreginak, Alfonso XIII.ak, Cánovas eta Sagasta **errestauratzaileek**, Silvela, Maura eta Dato kontserbadoreek, Canalejas, Moret eta Romanones liberalek, Primo de Rivera diktadoreak, Azaña erreplubikarrak, Franco diktadoreak, Juan Carlos I.a erregeak. Hasier Etxeberria

Leon **Errestauratzaileak** eta ondorengoek, 150 urteko benetako interregno baten ondoren, Bizantziar Inperioa berreraikitzeari ekin ziotenean, material egokiagoak aurkitu zituzten Moisesen Legean Justinianoren Corpus Iuris-ean baino Iñaki Mendiguren

---

errestaurazio 1 *iz* zaharberritzea.

Berehala konturatu nintzen unibertsitateko ikasleak zirela gehienak: artearen historia ikasten zebiltzanak, **errestaurazioan** espezializatu nahi zutenak eta horrelakoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Honekin esan nahi dudana da, Hugoren etxearen eta oroigarriaren **errestaurazioak** ene irudiko esanahi sinboliko gehiago izan duela, historiko hutsa baino, eta orain ere seguruenik halaxe duela. Koldo Izagirre

2 beste erregimen politiko batek aldatu zuen errregimen politikoa berrezartzea.

Errestaurazioa hamabost urte lehenago hasia zen; Parisko herriarekin kontuak ezin garbiturik zebiltzan borbondarrak. Jon Muñoz

1658 urtean hil zenean, Richard Cromwell, bere semeak, hartu zuen agintea, baina seme honek ez eduki aitaren nortasuna, gogortasuna edo Jainkoarenganako benetako itxaropena eta zortzi hilabete baino lehen bota egin zuten agintetik Charles II.a jartzeko, Estuardotarren **Errestaurazioa** deritzona. J.M. Olaizola "Txiliku"

Liberalismoa, klasizismoa, erromantizismoa, tradizionalismoa, erlijio katolikoa, espainoltasuna, patriotismoa, honezkero dena nahas-mahasten da, **Errestaurazioarekin** batera hasi eta luzatu den "Calde-rón-en auzia" delakoan (1814-1820) nabaritzen denez. Joxe Azurmendi

Gerra napoleondarren ondoko **Errestaurazioan** gaude eta erromantizismoaren hastapenetan. Joxe Azurmendi

Frantziako iraultzaren atzerapausotzat daukagun **errestaurazio** borbonikoak beste motako koadroak eskatu zizkion Ingresi. Berria - Kultura

---

erresto[1] *iz* pilota jokoan, sakea edo botea itzultzea. ik **errefera**.

Sakeak, **errestoa**, defentsa, erasoa... guztia jorratu zuen Iberoko aurrelariak. Berria - Kirola

Sakea eta **errestoa**, hala nirea nola berea, zuzenean tantoa lortu ala ez, lehen pilotakadak joko guztia baldintza dezake. Berria - Kirola

Errestoak sotamanoka, gantxoak zazpi koadrotik. Berria - Harian

Titinen kontra **errestoan** ongi aritzea beste edozein partidatan baino garrantzitsuagoa da. Berria - Kirola

Tanto ugari, baina, sakeei berei baino gehiago, Xalaren **errestoan** erakutsi zuen konfiantza faltari esker lortu zituen. Berria - Kirola

Ongi sakatzen du eta **errestoari** airez erantzuten saiatzen da. Berria - Kirola

Lemoarrak zortzi tanto egin zituen saketik, eta beste asko **erresto** eskasei esker lortu zituen. Berria - Kirola

Sakean bikain jardun zen, eta primeran baliatu zituen **erresto** osteko pilotak. Berria - Kirola

---

erresto[2] ik **arrasto**.

---

erresultatu *iz* emaitza.

Eta azkar, etenaldirik barik, irakurtzen niharduenaz ohartu barik, **erresultatu** eta kontsiderazioen zerrenda luzea errezitatu nuen. Edorta Jimenez

---

erresultoi *izond adkor* plantosoa, itxurosoa.

Horixe bai marketing eslogan **erresultoia**. Ana Urkiza

---

erresuma *(ETCn **28.831** agerraldi; cf **erreinu** ETCn **4.380** agerraldi) iz* errege edo erregina bat buru duen estatua. ik **erreinu**.

-Prest nago **erresuma** utzi eta beste lurralde batera joateko -erantzun zion Ginebrak denen aurrean-. Juan Kruz Igerabide

Galaadeko gainerako lurraldea eta Ogena izandako **erresuma**, hau da, Argob eskualdea eta Baxan osoa, refatarren eskualde esaten ziotena. Elizen arteko biblia

Euskal Herria **erresuma** edo estatu bitan zatituta egotea, zati horietako bakoitzean erdara bana nagusi izatea, eta zati horietako bakoitzak bestearekin hartu-eman nahikorik ez izatea. Koldo Zuazo

Irail hondarrean, berri batek Frantzia osoa inarrosi zuen: Legebiltzarra desegina izan zen **erresumari** konstituzio berri baten emateko. Elena Touyarou

Salomonen jakinduriaren berri izan zuten herrialde eta **erresuma** guztietatik etorri ohi ziren Salomonen mintzaldi jakintsuak entzutera. Elizen arteko biblia

Artaxerxesen **erresuma** Indiatik Etiopiaraino zabaltzen zen, ehun eta hogeita zazpi eskualde zituelarik. Elizen arteko biblia

Nazio bakar bihurtuko ditut lurralde honetan, Israelgo mendietan; errege bakarra izango dute guztiek; ez dituzte berriro bi naziotan bereiziko, ez eta bi **erresumatan** banatuko ere. Elizen arteko biblia

Zeure menpe dituzu lurreko **erresuma** guztiak, zeure esku ahalmena eta indarra. Elizen arteko biblia

Antioko erregeak agindua idatzi zuen bere **erresuma** osorako: denek herri bat bera izan behar zuten. Elizen arteko biblia

Germaniarrek beren **erresumak** fundatu zituztenean, abegi on hori neke bihurtu zitzaien. Iñaki Iñurrieta

Bere bi semeen artean banatu zuen **erresuma**, Karlos eta Karlomanen artean. Iñaki Iñurrieta

Aurreko urteetan, Frantziako **erresuman** zenbait aldiz piztua zen gerla erromazaleen eta Erlijioaren jarraikitzaileen artean. Aingeru Epaltza

Gutunak bidali zizkien Borgoniako **erresumako** apezpiku eta jaun nagusiei, aginduz haiek bizi artean berretsi egingo zizkiela beren ohore eta karguak Hartara, Europa Indiekin komunikatuta zegoen bai Egiptotik eta bai Siriako **erresumatik**. Iñaki Iñurrieta

Egin ezazue kontu zuek, mairu eta moabiten arrazakook iruzurrez lapurtu zenietela Lusitaniako **erresuma** zuen **erresumari** eta gure **erresumari**, gaur den egunera arte hiri, herri eta elizak suntsituz. Jon Alonso

Nafarroak aro nahasia bizi zuen eta pentsatzekoa da Joanesek, bastart istorioetan sartu gabe, aski lan zuela **erresumako** Gorteak bere arrazoietara ekartzen, beaumondarren konspirazioak desegiten eta Gaztelaren eta Frantziaren hortz gosetiei itzurtzen. Aingeru Epaltza

Frantzisko Etxart, **Erresumako** prokuradore orokorraren seme bigarrena nirekin nuen. Aingeru Epaltza

Gazteluko gizonen bertze eginbide bat zen **erresumako** zerga-biltzaileari sostengu ematea, beren arkabuzen aho konbentzigarrien bertutez. Aingeru Epaltza

Urkatu zituzten biak, eta idatzi egin zuten gertatua **Erresumako** Gertakari-Liburuan erregearen aginduz. Elizen arteko biblia

Parlamentuak **erresumako** ia auzi guztiak epaitu zituen azken instantzia gisa. Iñaki Iñurrieta

Sultanak gorabehera horien guztien berri izan zuen, eta urrezko letraz idatzarazi zuen **erresumako** historia liburuetan. Patxi Zubizarreta

Erresumaren armadak, printze Henrike gaztea eta lotinant jeneral Antonio Agaramont buru zituela, erreginarendako berreskuratuak zituen Nafarroa Behereko lurrak eta hiriak. Aingeru Epaltza

Nahiz eta, **erresumaren** legearen arabera, feudoak aldagarriak izan, ez ziren ematen edo kentzen apeta hutsez eta arbitrarioki. Iñaki Iñurrieta

Handik aurrera **erresumaren** maiordomo bihurtu zen. Iñaki Iñurrieta

-Erlijioaren eta **erresumaren** soldaduetan adoretsuena eta buruargiena naizelako. Aingeru Epaltza

Migel Mailu goiz hartan berean abiatu zen **Erresumaren** mendebaldeko mugara. Aingeru Epaltza

-Hemendik aitzina, hi izanen haiz **erresumaren** ezpata zorrotza Nafarroako alderdi horretan. Aingeru Epaltza

Erresuma eta fedea! -hots egin zien bere gizonei. Aingeru Epaltza

Bide bera hartu zuten gero Europako beste **erresuma** zenbaitek eta bere gain utzi menturaz lau mende hartan eskutan zeuzkaten ontasunak. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagnekin)

Historialariek onartzen dute gaur egun [...] XX. mende hastapenean Europako **erresuma** zaharretan, Frantzian, Espainian, Italian, Ingalaterran eta Alemanian nagusitu zela nazionalismoaren sukarra eta hori izan zela, azken buruan, I. Mundu Gerlaren kausa garrantzitsuena. Piarres Xarriton

Britainiar Indiako herri-administrazioaren izaera eta lorpenak nekez uler daitezke **Erresuma** Batuko administrazio-historiaren aurre-aurreko atala kontuan hartuta ez baldin bada. Iñaki Mendiguren

Eudonek lortu zuen, borroka gogorren ondoren, Pirinioetako bi aldeetako lurrek nolabaiteko independentzia izan zezaten **Erresuma** bisigotikotik eta Frankoen **erresuma** merovingiarretik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erresuma urrunetara joan zen batean, bakardade luzearen aringarri, mutil gazte batez maitemindu zen. Patxi Zubizarreta

Bi **erresuma** handi horiek konkistatzeak eta kontrako alderdia suntsitzeak bere kapitainak asetzeko nahikoa bitarteko eman zioten. Iñaki Iñurrieta

Gauza jakina da Romulok bere **erresuma** txikiko lurrak banatu zituela hiritarren artean. Iñaki Iñurrieta

Egiptoren zoria aldatuko dut: Patros eskualdera itzularaziko ditut, beren sorterrira. Han **erresuma** apal bat eratuko dute. Elizen arteko biblia

Henrike Albretekoak noizbait emanen zuen, ordea, **erresuma** galdua berreskuratzeko agindua. Aingeru Epaltza

Horra, Jainko Jaunaren begiak **erresuma** bekatari honengan jarriak daude. Elizen arteko biblia

Gure patriaren etsaia den atzerritar **erresuma** batekin salerosketan zabiltzaten kriminalak. Elena Touyarou

3

Bi saio egin zituen, 1512an eta 1516an, Gaztelak konkistatutako **erresuma** zatia berreskuratzeko. Aingeru Epaltza

· "Gurutzada" terminoa normalean Mendebaldeko espedizio militar jakin batzuetara mugatzen da, aita santuak akuilaturik eta aita santuaren bedeinkazioarekin Jerusalemen kristau-**erresuma** konkistatzera, hari eustera edo berriro konkistatzera joan ziren espedizioetara, Iñaki Mendiguren

4 irud/hed

Zuzentzaileek, ahal balute, kode penalak berak baino gehiago agintzen duen debeku-multzo batek esku eta hankaloturik ez baleude [...] zorion unibertsalaren **erresuma** ezarriko lukete, egarriak dagoenari edaten emango liokete, goseak dagoenari jaten. Jon Alonso

Ez al dakizue fariseoei erran ziela ezen publikanoak eta putak aitzinetik izanen zituztela zeruko **erresuman**? Joan Mari Irigoien

Perfekzioa zeruko **erresuman** baizik ezin daiteke bizi. Jon Alonso

Oharkabean, letren **erresuman** barneratu gintuen. Aingeru Epaltza

Izuaren eta ikararen **erresuman** bizi zirela bera eta gazteluko denak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mendebaldeko pentsamolde zientifikoa bat-batean psikologiaren **erresuma** honetan sartzea, neurri batean, bi mundu-gerraren azpiproduktua izan zen. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adierazi zuen erresuma (7); **aebek eta erresuma** (15); **aeben eta erresuma** (7); **aebetako eta erresuma** (13); **alemaniako eta erresuma** (5); **ari dira erresuma** (5); **atzo erresuma** (38); **atzo erresuma batuko** (35); **aurkitu dute erresuma** (8); **baina erresuma** (10); **baina erresuma batuko** (6); **baita erresuma** (6); **bat erresuma** (7); **batuek eta erresuma** (11); **batuetako eta erresuma** (8); **bbc erresuma** (5); **bbc erresuma batuko** (5); **bere erresuma** (10); **beste erresuma** (9); **bi erresuma** (10); **blair erresuma** (47); **blair erresuma batuko** (47); **brown erresuma** (5); **da erresuma** (42); **da erresuma batuan** (10); **da erresuma batuko** (14); **dago erresuma** (5); **den erresuma** (6); **die erresuma** (5); **dio erresuma** (11); **dio erresuma batuko** (8); **diote erresuma** (6); **diote erresuma batuko** (5); **dira erresuma** (27); **dira erresuma batuan** (13); **dira erresuma batuko** (8); **ditu erresuma** (10); **ditu erresuma batuko** (6); **dituzte erresuma** (14); **dituzte erresuma batuan** (8); **dituzte erresuma batuko** (6); **donostia erresuma** (12); **donostia erresuma batuko** (10); **du erresuma** (59); **du erresuma batuak** (13); **du erresuma batuan** (14); **du erresuma batuko** (31); **duen erresuma** (6); **duen erresuma batuko** (5); **dute erresuma** (47); **dute erresuma batuan** (20); **dute erresuma batuko** (23); **edo erresuma** (7); **egin dute erresuma** (5); **egin zuen erresuma** (6); **erredakzioa erresuma** (40); **erredakzioa erresuma batuko** (31)

erresuma bat (21); **erresuma batean** (6); **erresuma batu** (8); **erresuma batua** (292); **erresuma batua da** (7); **erresuma batua eta** (32); **erresuma batuak** (192); **erresuma batuak eta** (21); **erresuma batuak iraken** (5); **erresuma batuan** (362); **erresuma batuan egindako** (6); **erresuma batuan eginiko** (6); **erresuma batuan ere** (8); **erresuma batuan eta** (17); **erresuma batuarekin** (11); **erresuma batuaren** (80); **erresuma batuaren kolonia** (5); **erresuma batuaren menpe** (10); **erresuma batuaren menpeko** (5); **erresuma batuari** (34); **erresuma batuari eta** (6); **erresuma batuko** (1333); **erresuma batuko aire** (8); **erresuma batuko alderdi** (20); **erresuma batuko armada** (5); **erresuma batuko armadak** (16); **erresuma batuko armadako** (21); **erresuma batuko armadaren** (8); **erresuma batuko atzerri** (52); **erresuma batuko auzitegi** (10); **erresuma batuko barne** (11); **erresuma batuko bi** (5); **erresuma batuko defentsa** (21); **erresuma batuko ekonomia** (8); **erresuma batuko errege** (6); **erresuma batuko eta** (48); **erresuma batuko giza** (9); **erresuma batuko gobernua** (10); **erresuma batuko gobernuak** (67); **erresuma batuko gobernuaren** (11); **erresuma batuko gobernuari** (13); **erresuma batuko gobernuek** (6); **erresuma batuko hainbat** (6); **erresuma batuko hiriburuan** (9); **erresuma batuko hiriburuko** (5); **erresuma batuko ikertzaile** (7); **erresuma batuko ikertzaileek** (6); **erresuma batuko ipar** (14); **erresuma batuko itsas** (7); **erresuma batuko lehen** (166); **erresuma batuko liberal** (7); **erresuma batuko osasun** (15); **erresuma batuko poliziak** (11); **erresuma batuko poliziaren** (6); **erresuma batuko segurtasun** (5); **erresuma batuko soldaduek** (12); **erresuma batuko the** (16); **erresuma batuko zerbitzu** (16); **erresuma batuko zientzialari** (15); **erresuma batuko zientzialariak** (8); **erresuma batuko zientzialariek** (9); **erresuma batuko zientzialarien** (5); **erresuma batukoa** (9); **erresuma batukoak** (11); **erresuma batura** (25); **erresuma batutik** (17); **erresuma edo** (5); **erresuma eta** (18); **erresuma eta fedea** (7); **erresuma guzian** (5); **erresuma guzietan** (7); **erresuma guztiak** (7); **erresuma hartako** (6); **erresuma hartan** (7); **erresuma haundi** (7); **erresuma honetako** (6); **erresuma hori** (6); **erresuma horrek** (5); **erresuma hortako** (9); **erresuma hortan** (5); **erresuma hura** (7); **erresuma izena** (11); **erresuma osoa** (5); **erresuma osoan** (17); **erresuma zaharrean** (5)

esan zuen erresuma (6); **eta erresuma** (261); **eta erresuma batua** (18); **eta erresuma batuak** (39); **eta erresuma batuan** (24); **eta erresuma batuarekin** (5); **eta erresuma batuaren** (15); **eta erresuma batuari** (5); **eta erresuma batuko** (123); **eta erresuma batukoak** (5); **europako erresuma** (5); **ez erresuma** (5); **frantzia eta erresuma** (15); **frantziak eta erresuma** (6); **g erresuma** (5); **gure erresuma** (8); **irlandako eta erresuma** (9); **jack straw erresuma** (11); **john reid erresuma** (6); **londres erresuma** (8); **londres erresuma batuko** (5); **murphy erresuma** (5); **nafarroako erresuma** (37); **nafarroako erresuma izena** (9); **nire erresuma** (5); **paul murphy erresuma** (5); **reid erresuma** (7); **reid erresuma batuko** (7); **straw erresuma** (11); **straw erresuma batuko** (10); **tony blair erresuma** (46); **unibertsitateko erresuma** (10); **unibertsitateko erresuma batua** (10); **zen erresuma** (31); **zen erresuma batuko** (12); **zeruetako erresuma** (10); **zion erresuma** (9); **zion erresuma batuko** (6); **zioten erresuma** (5); **zituen erresuma** (11); **zituen erresuma batuko** (6); **zituzten erresuma** (6); **zuen atzo erresuma** (21); **zuen erresuma** (59); **zuen erresuma batuan** (12); **zuen erresuma**

batuko (35); zuten atzo erresuma (7); zuten erresuma (11); zuten erresuma batuko (6)

bere erresumako (6); bere erresuman (5); bere erresumara (6); bere erresumaren (7); bi erresumen (6); erresumako beste (5); erresumako lotinant (7); erresuman sartu (6); erresumaren eta (6); erresumen artean (6); erresumen arteko (9); eta erresumako (8); eta erresumaren (8); frantziako erresuman (5); gure erresuman (9); nafarroako erresumak (6); nafarroako erresumako (12); nafarroako erresuman (29); nafarroako erresumaren (8); nafarroako erresumatik (6)

---

erresumaño *iz* erresuma xumea. ik **erresumatxo**.

Gure mendi xoragarrien artean **erresumaño** bat bezala bildurik zituzken ikusi nahi zazpi probintziak; ikusten ere zituzken ametsetan haren begiek Gernikako arbolaren itzalpe eztian. Piarres Xarriton

---

erresumaratu, erresumara(tu), erresumaratzen du *ad* erresumara eraman.

Gorentasun ahaltsu hori, jakiteko du biluzgorririk nautela berorren **erresumaratu**. Juan Garzia

---

erresumatiar *izond/iz ipar* erresumakoa.

Horien artetik, italiano bahitu bat odol hotzez hil ondoan, badira oraino 50 bat kanpo **erresumatiar** bahituak hango lurrean, ez jakin xuxen nehork ere zein talde berrik dituzten bahituak. Herria

---

erresumatxo *iz adkor* erresuma xumea. ik **erresumaño**. *irud/hed*

Gure baitariko **erresumatxoa** arian-arian pragmatikoago bilakatzen ari zaigu, egia da, eta gure gaurko munduak -euskarak dirua zuela ikusita, euskaraz ere ikasteko aitzakiarik izan ez duen merkatuak, alegia- manera adeitsuak eta jarrera integratua eskatzen dizkio idazleari. Anjel Lertxundi

---

erresumen *iz* laburpena.

-Hala da ze, alkate fusilatuaren iloba eta haren fusilamenduaren errudunetako bat, elkarrekin, eta biak ezkertiar eta abertzale joerekin-edo? Horra gerraren osteko mende erdiaren **erresumena**. Edorta Jimenez

---

erresumin **1** *iz* erredura batek edo gai erregarri batek eragiten duen oinaze sentipena.

Bikarbonatoa irentsi zuten biharamunean, urdaileko **erresumina** eragin zielako 124ko oparotasunak, eskuzabaltasun axolagabeak. Anton Garikano

Hatz handituetan ere sentitzen zituen **erresumina** eta eztenkadak, haragian milaka orratz sastaka ari balitzaizkio bezala. Anton Garikano

Goseak zaude, eta **erresumina** daukazu izterraren goiko aldean. Rafa Egiguren

Goizero bezala, asun-ura eman dio amonak Agustini, landarearen **erresumina** ezin hobea omen da-eta eztarririk zakarrena ere leuntzeko. Anjel Lertxundi

Bere arrebaren begietako **erresuminak** gainezka egin zuen. Harkaitz Cano

2 irud/hed

Miseria, damu, **erresumin** eta oinazearen kontra defendatzeko. Anton Garikano

Bestetik, *gibelmin, gibelmindu, gibel txarra egin* bezalako esaerek, gizaeraren alderdi garratza: arrengura, **erresumina**, melankonia. Patziku Perurena

-Ada! -egin nuen protesta, esan berri zaion egia oker-iraintzat hartzen duen baten **erresumina** erakutsirik. Anjel Lertxundi

Ez zen haiengan bekaizkeria eta maltzurkeriarik, gorroto eta irainik, susmo txar eta **erresuminik**, baina bai bihotz batasun handia, etengabeko bakea, esker ona eta gorespen-hotsa. Askoren artean

Ekintza-gizon hori boluntarista da, bihoztuna, **erresuminak** adoretzen du, harrotasunak ematen dio kemena. Josu Zabaleta

Mesfidantza hura, berriz, ez ote zen inbidiaren eta **erresuminaren** umea. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta neure **erresumina** irenstera behartua izatea! Jon Muñoz

Gizaki noblearen **erresumina**, norberagan agertzean, erabat agortzen da batbateko erreakzio zakarrean, eta horregatik ez du pozoitzen inor. Patziku Perurena

Halaxe itzali zen gu bion arteko sua, **erresuminik** gabe, eten tragikorik gabe, itzaliz doan argizari bat bezala. Juan Kruz Igerabide

Erresuminik gabe, apaltasunez, eskatzen ziguna mesede zaila bailitzan. Bernardo Atxaga

Bere onetik aterea, egun batez **erresuminez** esan zion: [...] Maitalearengandik **erresuminez** baina diskreziorik handienaz urrundu zen. Patxi Zubizarreta

Saminezko eta **erresuminezko** gurpil zoro bat izan zen hura dena. Josu Zabaleta

Idazleen artean behin baino gehiagotan sumatu izan dut halako gutxiespen moduko bat, bertsoa dela eta ez dela; ez nuke pentsatu nahi oihartzun eskasagoak eragindako **erresumin** hutsa denik. Andoni Egaña

Mindurik, **erresumin** garratz batez. Josu Zabaleta

Erresumin sor bat piztu zitzaion barruan, zeraman bizimoduaren kontra. Irene Aldasoro

Aitortu beharra dut, lotsa punttu batekin, halako **erresumin** bat dudala bihotzean nire buruaren kontra. Karlos Zabala

Ohitik kanpoko **erresumin** burlaizetsua aurpegiratu zion Mathildek. Anjel Lertxundi

Haizea ebatsi eta birikak berritzea eragozten dion **erresumin** zulatzailearen oinazeak. Pako Aristi

3 (izenondo gisa)

Pasadizo hark, ordea, bi lagun astunen harreman haren galerarekin batera, halako zapore **erresumina** utzi zigun. Patxi Zubizarreta

Aitona Angel **erresumina** zen, ttattar hutsa. Alberto Barandiaren

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Ale, ohera", esango zigun, **erresumin**-aire bat ahotsean. Xabier Mendiguren Elizegi

Erresumin puntua nabaritu zion Anari ahotsean. Iñaki Iñurrieta

Erresumin izpirik ez daukat ordea. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erresumina eragin (3); erresumink gabe (4); eta erresumina (3)

---

erresumindu, erresumin(du), erresumintzen **1** da/du *ad* sumindu, erremindu.

Hortzak estuturik, gizona madarikazioka eta biraoka **erresumindu** zitzaion. Patxi Zubizarreta

Neskatxa hizketa molde oldarkorrez **erresumindu** zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta

Florence Leaming dela-eta **erresumintzea** ere! Mirentxu Larrañaga

Dena delakoa esaten dudala ere, gero eta gehiago **erresumintzen** baitzaitut, nonbait. Mirentxu Larrañaga

Erresuminduta dirudizu nirekin. Mirentxu Larrañaga

Jakin izan banu, ez nizun ezer esango, bota zidan Elsbethek **erresuminduta**. Anjel Lertxundi

Erresuminduta eta amorruz beteta zebilen orain, begitan hartuak zituen bai talde hura eta bai mundu osoa. Jon Muñoz

Erresumindurik, umore txarturik, zer suma ibili zen aldi batez, nire joan-etorriak bijilatuz edo paperen artean miatuz Auzo-etxeetako jende miseriatsu, zikin, beroak **erresumindutako** hura, haserretzeko prest egoten zen beti. Joxean Agirre

2 (era burutua izenondo gisa)

Keinu **erresumindua** egin zuen. Aingeru Epaltza

Dagoeneko beste modu batera maite zuela sumatzen zuen Andresek; maitasun jeloskor eta **erresumindu** bat zion. Josu Zabaleta

Maitale abandonatu edo senar ohi **erresuminduak** direla. Luis Elberdin

Gu desbideratutako **erresuminduok**, gu erook, "gizarteratu". Txillardegi

3 erre (irudizko adiera).

Zigarroen keak ere begiak **erresumintzen** zizkidan. Urtzi Urrutikoetxea

Janaria nire ezpain **erresumindetara** jaso nuenean. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erresumindu egiten (6); **erresumindu egiten zuen** (3); **erresumindu zitzaion** (3); **erresuminduta zegoen** (3)

---

erresumingarri *izond* larruazalean erredurak eragiten dituena.

Badute habia baten nolabaiteko antza, eta baita garro **erresumingarriak** (urtikanteak) ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erresuminkor *izond/adlag* erresumintzeko joera duena.

Konbertitu edo "arnegatuok" **erresuminkor** zulatzen ikusten ditugu besteon kontziente eta inkontziente "zikinen" (mitiko, etab.) barruetaraino. Joxe Azurmendi

---

erresurrezione *iz* hiletatik piztea.

Kristoren heriotza eta haren **erresurrezionea**. Joan Mari Irigoien

Hemen dituk heure behatzezurrak, **erresurrezionearen** egunean kontu gaixtorik izan ez dezaan, behatzezurrak leku batean eta bertze hezur guztiak bertzean. Joan Mari Irigoien

Eta zuetarik nor legoke bere behatzaren ebakitzeko eta oferendatzeko disposizionean, Lorenzo Cortés zaldunaren **erresurrezionearen** truke? Joan Mari Irigoien

---

erresurtsa *iz pl* baliabideak.

Gure **erresurtsa** guziak joan dire. Piarres Xarriton

---

erresuzitatu, erresuzita(tu), erresuzitatzen **1** da/du *ad* berpiztu.

Argi hartan bildurik, **erresuzitatzen** da Kristo, jaisten da gurutzetik, betetzen da mortua lorez. Joan Mari Irigoien

2 (era burutua izenondo eta izen gisa)

Hala agertu zitzaidan hura, Abraham **erresuzitatu** bat balitz bezala, ustekabeko hark itsutua, bere seme Isaak semearen gibeletik, haren sastatzeko disposizionean. Joan Mari Irigoien

[Kristo] jaisten da gurutzetik, betetzen da mortua lorez, **erresuzitatuak** bere oinez lurra ukitu orduko. Joan Mari Irigoien

---

erret ik **errege 3**.

---

erretagoardia *iz* gudu lerroa ez den eremua. ik **atzegoardia**.

Erretagoardia zena aste gutxiren buruan bihurtu zen, ordea, lehen lerro. Harkaitz Cano

Aitzindaritza eta **erretagoardia**, haren babesle izanen dira. Aingeru Epaltza

Atzean, iluntasunetik atereaz, zaldizkoen talde txikia zetorkien lauhazka, **erretagoardiatik** gelditzen zen guztia. Agustin Otsoa

Erretagoardiarekin geratzeko erabakia hartu duela zirudien, Pelennortik atzeraka etortzea presakako ihesaldi bilakatuko den beldur baita. Agustin Otsoa

Stalingrado zulo beltza zen, zulo eskerga, zulo kabugabea, zulo haragijalea, baina **erretagoardian**, hala ere, musika entzuten zen, Txaikovskiren Beltxargen Aintziraren doinuak. Felipe Juaristi

Atzean, Merry zihoan Stybbaren gainean, Gondorko mezulariekin eta, azkenik, **erretagoardian**, erregearen eskoltako beste hamabi gizon. Agustin Otsoa

Eta zer da adierazpen askatasuna? **Erretagoardian** besoak gurutzatuta gelditu eta ekintza gizonek egiten duten guztia gaizki dagoela esateko aukera bat besterik ez da. Ramon Etxezarreta

---

erretardo *iz* aurreko akordeko nota.

Halaber, musikarekiko kontzientzia analitikoa konprenitzeko kontzeptuak jorratuko dituzte, hala nola: zentru tonala, disonantzia, **erretardoa**, kadentzia, kontrapuntua, horizontalitatea, bertikalitatea, harmonikoak, tentsioa... Berria - Kultura

---

erretasun *iz* erredura sortzen duen gauza.

Erretasun bat nabaritu zenuen urdailetik gorantz. Koldo Izagirre

Erretasuna denetan barreiatzen zen, sudur eta larru zuloak oro tapatuz, aldi berean suhaken gutizia bihotzetan txertatuz. Itxaro Borda

Erretasun gero eta ezagunago bat hesteetatik gorantz, itobehar bat aurpegiraino, zeure burkideen zabarkeria ezin mesprezatuaren amorrua. Koldo Izagirre

Commendatorea bera ere **erretasun** suminez mintzatzen zen haren gainean, eta Giuliak, berriz, berak aitortua, senez gorrotatzen zuen, zergatik jakin gabe, errukirik gabe, azeriak txakurrak gorroto dituen moduan. Juan Garzia

erretaula *iz* **1** aldarearen atzeko horman margolanez, imajinez eta beste apaingarriz osaturik ezartzen den atala. ik **oholtza**.

Erretaula ere, sinplea baina ederra da. Xabier Etxabe

Santiago Handiaren elizako **erretaula** eta bereziki Apostolu Beltzaren itxura fina ikusi ditut. Piarres Aintziart

Aldareko **erretaula** eta paretetako santuei begira ari nintzela, ahots bat iritsi zitzaidan atzetik. Xabier Mendiguren Elizegi

Bernard Dartiacave, biarnes artisau famatuak **erretaula** urreztatu zuen 1708an. Michel Oronoz

Urrez beteriko **erretaula** handiaren aitzinean, aldare ttipitto baten gibeletik mintzo da erretorea hogei bat emazte bilo xuriei. Piarres Aintziart

Pintore bat heldu baitzen Ubarnerat, koadro baten egiteko enkarguarekin, elizako **erretaula** edertzeko asmoz. Joan Mari Irigoien

Era berean, laidoztatu egin zuten Santa Maria elizako **erretaulan** ohoratzen zen irudia. Askoren artean

Ez genuen **erretaularen** pintura lehengoratu behar edo txapiteletako erliebeak garbitu edo halako ezer. Xabier Mendiguren Elizegi

Bakar-bakarrik zegoela ikusirik, gerrian zeraman aiztoa hartu, eta haren punta sartu zuen **erretaulako** arrakalan. Anjel Lertxundi

Ez Ama Birjinari ez sainduei ez **erretauletako** imajinei. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erretaula txiki baten irudi itzaltsuak nabarmendu zituen lehendabizi. Anjel Lertxundi

Nabe nagusi eta bakarraren buruan aldarea zegoen -eskailera batzuen buruan- bere **erretaula** urreztatuarekin. Aitor Arana

Erretaula barroko edo sasibarrokoen irudiekin, entreteni daiteke bat eliza gehienetan, besterik ez bada; aszetismo horretan murgildurik, hori ere ez. Iban Zaldua

Inon ez dut ikusi giza gogoaren atseginerako **erretaula** ederragorik. Patziku Perurena

Hor dago obra ospetsua bere harrizko elorri zorrotz, eskultura ohargarri eta **erretaula** begi-betegarri eta eliza nasaiarekin, Mariaren itxura maitatua ororen erdian. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aralarko erretaula (4); **elizako erretaula** (5); **elizetako erretaulak** (3); **erretaula eta** (5); **eta erretaula** (4); **migeleko erretaula** (5); **san migeleko erretaula** (5)

---

erretegi **1** *iz* errekiak zerbitzatzen diren jatetxea.

Herriko astekariak informatzen zigunez, Sipsey eta Onzell zeuden sukaldari, Big Georgek, berriz, **erretegiaren** ardura zeukan. Pablo Sastre

Aratsean, afaria portuko **erretegian**. Herria

Bestalde, portuko **erretegian**, Itsas Begia elkarteak muntatua du lehengo arrantzale barkuez erakusketa herrikoi bat. Herria

Zenbait geletan edo bertze **erretegi** batzuetan gutienez hamar labe ziren lerroan. Eneko Bidegain

Erretegian bakarrik gaudela ohartu gara, eta Joxeaustin taberna ixteko gure zain egongo dela. Xabier Etxabe

Harry eta biok afaltzeko elkartu ginen Mike&Tony's Steak House-n, Bosgarren Etorbidearen eta Carroll Street kalearen arteko kantoian dagoen **erretegian**. Oskar Arana

Horri esker, adibidez, "produktuaren gastronomia" (**erretegietan** ohikoa dena) eta hainbat eratako establezimenduak (sagardotegiak, landa-etxeak, etc.) indartu eta hobetu egin dira eta idazlan honetako beste atal batean aipatu dugun "kontsumo kritikoa" zabaldu da, hein xume batez. Edorta Agirre

Semea hil zitzaion eta **erretegira** eraman zuten, aitak ikusi gabe. Marzel Etxehandi

Bat garako xefa-ordea zen, beste bat **erretegiko** hilkien disekatzaile. Marzel Etxehandi

Ben-Hinom deritzan haranean zegoen Tofeteko **erretegia** ere profanatu zuen; horrela, ezin izango zion inork ere suari eman bere seme nahiz alabarik, Molok sasijainkoari eskaintzeko. Elizen arteko biblia

Hiru uztarri ariko dira, BBK Sarian lehen hiru postuetan sailkatutakoak: Intxorta **Erretegia**, Letea Jatetxea eta Ixama. Berria - Kirola

Aia eta Zarautzen arteko bertso desafioa egingo da bihar, 21: 00etan, Urdaneko (Aia) Begoña **erretegian**. Berria - Kultura

Anitz leku hartuko ditu: pilota plazako gela, xardin **erretegia**, animazio gunea, Ravel entzunegia eta Urdazuriko kirol gela. Herria

2 (izenlagunekin)

Haien etxeak fatxada bat zuen Saint-Jacques kale aldera, eta han **erretegi** handi bat zegoen, Gavard izeneko gizon prestu batek zuzentzen zuena, zeinaren emaztea birikeriaz hil baitzen, hegaztien usain gantzatsuen erdian. Karlos Zabala

Tokia ezaguna nuen: **erretegi** arrandiatsu bat, landa-minaren aitzakian kanporatzen diren hiritarren sabelak betetzen espezializatua. Aingeru Epaltza

3 erraustegia.

Hendaian, bulta huntan eztabadak badira zikin eta ondarkinen gainetik, herriak erabakirik Irun eta Hondarribiarekin partzuer jarriko dela Irunen egitekoa duten zikin **erretegi** handiarentzat. Herria

Gorputz-**erretegi** bat Miarritzen. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erretegi bat (5); **erretegi hori** (4); **erretegi horren** (3); **portuko erretegian** (17); **zikin erretegi** (3)

---

erreteila *iz* teilatua konpontzea.

Gertatuaren ondorioz, Asisko herriak erabaki hau hartu zuen: aurrerantzean hiriko agintaria, nornahi zelarik ere, behartua gelditzen zela urtero etxe hartako **erreteila** eta beharrezko beste konponketak egitera. Askoren artean

---

erreten **1** *iz* gizakiak egin edo prestatutako ubide txikia; lubakia. ik **kanal**.

Kolomen parean geratzen direnak zulatu egin behar dira teiletatik euri-ura hartzen duen **erretenera** iritsi arte. Santiago Iruretagoiena

Ibaira joaten ziren, burdinazko zubiko tuerkak sartzera, edo ubideetako **erretenetara**, presako harresiei porlana ematera. Koldo Biguri

Euria egin du; uraren zurrumurru mehea dator bidezidor-ertzeko **erretenetatik**. Oskar Arana

Erreten bat zulatu zuten hesiaren ezpondaren eta kontraezpondaren artean, eta Angararen urez bete zuten. Karlos Zabala

Erreten horretan ura jarriko da, eta urak **erretenaren** goiko ertzak denean berdin ukitzen baditu, jakingo da sestran dagoela jarrita. Santiago Iruretagoiena

Gizonak aurpegia garbitu zuen **erreteneko** urarekin eta zapiaz aurpegia txukatzen ari zen. Koldo Biguri

Aldarearen inguru guztian hogeita hamarren bat litro har zezakeen **erretena** egin ondoren. Elizen arteko biblia

Ahateak atariko eskailera zaharren azpiko **erretenera** joaten ziren, eta hantxe geratzen ziren igeri eta krazkaka. Koro Navarro

Han zihoan ura aldare inguru guztian, **erretena** betetzeraino. Elizen arteko biblia

Orduan, Jaunak tximista bidali zuen, dena kiskali zuena: oparia, egurra, harria eta hautsa; eta **erreteneko** ura ere idortu egin zuen. Jose Antonio Mujika

Auto abarrikatu baten pusken artetik agertzen diren soin-adar zatikatuak, bide bazterretako **erretenean**. Aingeru Epaltza

Hogei indio haiek **erretenak** lubakitzen jarri nituen, ura haietan barrena itzur zedin. Joxe Austin Arrieta

Aldare inguruan **erretena** zegoen, sakon eta zabal metro erdi zena. Elizen arteko biblia

Inguruan tabako-sailak, **erretenez** bereziak, giza lan txukun eta zuzenak, baina gizakirik inon ez. Joxe Austin Arrieta

Hala, danbor horizontalak bira bat ematen duen bakoitzean harri bat eramango du zulora, eta **erretenetik** botako du. Santiago Iruretagoiena

Kolomak diametro berdinekoak izanik ere, neurketa-lerroak ez dira biak berdinak izango, ildaxka edo **erretenetatik** pasatzen dena bestea baino luzeagoa izango delako. Santiago Iruretagoiena

Labanaren puntak eskekoaren besotik azkeneraino segitu zuen arrakalako **erretena**, harik eta zerbaitekin topo egin zuen arte. Anjel Lertxundi

2 irud/hed

Pisuergaren **erretena** ja pasatua dut. Piarres Aintziart

Erdiko parteari izter forma emango zaio, grekoek *meros* deitzen dutena egiteko; izter horren alde banatara **erretenak** zizelkatuko dira, **erretenaren** aldeak angelu zuzenean paratuz; **erretenen** ezker-eskuin, eta ordena berdina jarraituz, beste listel batzuk jarriko dira. Santiago Iruretagoiena

Eraikinaren kanpoaldean argiaren instalazioa jartzeko **erretenak** markatzen ari zen palet baten gainean. Berria - Ekonomia

Oroitu behar genuke nolakoa zen artoa ereiteko tramankulutxoa, bi **erreten** axalekotan, erruberatxoa bueltatu ahala, arto ale pare batekin babarrun bat edo beste jausten uzten zuen txulo ttikiarekin. Pello Zabala

Ilea atzerantz bildu eta eskuez kolonia apur bat zabaldu du sama aldean... eta alkandorak bistan utzi duen bularren **erretenean**. Paddy Rekalde

Nire kuleroari alde batera eginez, txizari utzi nion haren bizkarreko **erretenean** zehar irristatzen. Juan Martin Elexpuru

Nire ipurdiko **erretenean** zehar isuri zen hazia, potxotxeko ileetaraino. Juan Martin Elexpuru

Makurtzen denean, musker laranja-berde bat agertzen zaio ipurmasailen arteko **erretenaren** gainean, tatuatuta, jakina. Berria - Kultura

Hatzetako bat neskaren **erretenean** erdi sartu eta eragiten hasi nintzaion, emeki-emeki. Anjel Lertxundi

Gero arin-arin lehortu, eta bizkor orraztuz zuzendu zuen ileko **erretena**. Anton Garikano

ik artesi.

Buruko ileak bi zelai berdintsutan banatuta **erreten** luze eta markatu batez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Elizabethek nebaren eskuak hartu, eta kiromantiko baten moduan pasatu zituen hatz-puntak nebaren esku-ahurreko **erreten** txikietatik. Anjel Lertxundi

Nire sabela bere kasa mugitzen zen, xurgatzeari utzi nion eta neure **erretenera** eraman nuen eskua, masturbatu beharra nuen, dena emanda nengoen. Juan Martin Elexpuru

Bakea nahi nuen, bake apur bat, neure bizitzaren **erretena** txukuntzeko. Hasier Etxeberria

John Deeren bizitza bi atal nagusitan banatuta dago, bi atalen artean sineskeriak eta erlijioak egindako **erreten** zabala dagoela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Negarrez jarraitzen zuen, etsi-etsian, eta bazihoan, gelditu egiten zen, bazihoan berriro, antsiarik gabe, xirripa bat hondarrean zehar bezala, **erreten** bat zabalduz gelaren ilunpean, gauaren isiltasunean. Bernardo Atxaga

Renek ondo ezagutzen ditu Kubako bizimoduaren azpijokoak eta lurpeko **erretenak**. Edorta Jimenez

Buia lerroek seinalaturiko **erretenetik** nabigatu behar duzu. Joseba Sarrionandia

Poesia ez baitago lerroen etenetan, hizkuntzaren **erretenetan** baizik. Joxerra Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ertzetako aldeetan, **erreten**-erdiak. Santiago Iruretagoiena

Ur, lurrun, huts, gas, gasolina eta abarren hoditeria guztiak, edo lurpeko **erreten**-zuloz zihoazen, edo zimenduan hormarteraturik. Juan Garzia

Erretxinaren txorrotada lodia **erreten**-buruko askatxoan hantxe baratu zen, ispilu beltz dirdaitsu bat osatuz. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Landa guztia zingira bat zen, bide guztia ur-**erreten** bat. Anton Garikano

Bare eta barraskiloak goizean goiz zainduko zituen, ea ur-**erretenetik** asko aldendu ziren. Pello Zabala

Herbertengatik bakarrik jarraitu genuen aurrera, zoritxarrez jarraitu ere, handik pixka batera ibai bateraino iritsi baikinen, hots, ibai-**erreten** bateraino. Joxe Austin Arrieta

Begipean nuen neskaren bular-**erretena** gero eta sakonagoa. Anjel Lertxundi

Neskatxak, mutilaren harridurarako, zilarrezko giltza bat atera bular-**erretenetik** eta portalea ireki zuen. Felipe Juaristi

Agurearen tabako-sailera zeraman bidea ohandotarren sail batetik abiatu eta Zitadelako babes-**erreten** batetik igarotzen zen. Koro Navarro

---

erretenitu, erreteni(tu), erretenitzen du *ad* atxiki.

Legez kanpoko antolaketa honen bitartez, Parisko udaleko itxurazko beste langile askoz ere gehiago ordainduta zeuden susmoak badaude, baina Jupperen eta beste 26 auzipeturen bizkar 7 hauen kasua baino ez da **erretenitu**. Berria - Mundua

---

erretentxapa *iz* erretenetako xafla.

Nik ez nien gehiago begiratu bi soldadu eder haiei, ez nuen ikusten lurra besterik, trenmakina trenbideen gainean trikitraka zebilen bitartean atertu gabe mugitzen ziren **erretentxapak** besterik. Fernando Rey

---

erretentxo *iz* erreten txikia.

Harriaren azalean egindako **erretentxoaren** ertzetan diamante-printzaren bat altxatuko zen, agian, baina besterik ez. J.M. Olaizola "Txiliku"

Apur bat honuntzago, arro sakan horien parera etortzeaz batera, Oñati aldeko aire bafada beroagoak behetik gora bultzatuta, aire kanal **erretentxoan**, hor azaltzen da berriro laino mehar ttattar bat, bertan formatzen eta gorpuzten doana, loditzen eta giharretzen, betetzen eta gizentzen. Pello Zabala

Joseph Asscherrek akatsaren nondik norakoa markatzen zuen marra bat egin zuen diamantearen gainean, altzairuzko labana sendo finkatzeko moduko **erretentxo** bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erretentzio **1** *iz* erretenitzea.

Erretentzioa 32 egunez luza daiteke. Berria - Euskal Herria

Gurutze Gorriak «aski ontzat» jo dituela tropa britainiarraren jokaerak eta hauen menpeko preso irakiarren **erretentzio** baldintzak. Berria - Mundua

Pare bat egun berantago, polizak Hendaiako **erretentzio** zentrora eraman zuen, Barne Ministroak berak Parisetik manatu baitzuen gero hortik libra zezaten. Herria

Nuadibuko gobernari Yahya Uld Sheik Mohamed Valek esan zuen hilean 230.000 dolarreko dirutza behar dutela kontrolak areagotzeko eta etorkinentzako **erretentzio** guneak antolatzeko. Berria - Mundua

DIUak ez du pisu aldaketarik eragiten, ezta likido **erretentziorik** ere, hau da, ez du loditzen. Luis Elberdin

MacGregorrek azaldu duenez, gatz asko jaten dutenek gernu-**erretentzio** arazoak izan ohi dituzte. Berria - Gaiak

2 ibilgailuen higidura motela, zirkulatzeko eragozpenen ondoriozkoa.

Horrek eraginda, **erretentzioak** izan ziren arratsalde guztian Arlaban mendatean. Berria - Harian

15:30 aldera kendu zituzten autoak errepidetik, eta pixkanaka-pixkanaka arintzen joan ziren **erretentzioak**. Berria - Euskal Herria

Agian horregatik sortzen dira azkenaldi honetan horrenbeste **erretentzio** gure autobideetan. Bernardo Atxaga

Istripuak **erretentzio** handiak eragin zituen hamabi kilometro luze izan ziren une batean. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erretentzio handiak (5); **erretentzio handiak sortu** (4); **erretentzio zentroan** (5); **hendaiako erretentzio** (5); **hendaiako erretentzio zentroan** (3)

---

erretikula *iz* sare baten gisa gurutzatzen diren lerro edo kidekoen multzoa.

Egurrezko zutabeak eta gapirioak ageri, etxeak badu halako "baztandar" kutsua, nolabait **erretikula**-sare molde hori zer den nik hemen azaltzeko. Txillardegi

---

erretikulatu *izond* erretikula egitura duena.

Opus incertum izenekoak, harriak bata bestearen gainean asentatuz eta elkarren artean trabatuz, egitura ez hain dotorea baina **erretikulatua** baino sendoagoa ematen du. Santiago Iruretagoiena

Bi horietatik **erretikulatua** da airosoena, baina ireki ere errazago irekitzen da, oheak eta junturak alde guztietara begira jarrita dauzkalako. Santiago Iruretagoiena

Linfa-sisteman sortzen den minbizi mota bat da Hodgkinen gaitza edo Linfogranulomatosi gaiztoa deitzen dutena; beste modu batera esanda, histiozitoen eta zelula **erretikulatuen** ugaltze neoplasikoa. Berria - Gaiak

---

erretikulozitu *iz* erabat heldua ez den globulu gorria.

Globulu gorri gazteak dira **erretikuluzitoak** eta 120 eguneko bizialdia dute batez bestean. Berria - Gaiak

Gero, **erretikuluzito** bihurtzen dira eritoblastoak, eta odolera pasatzen dira. Berria - Gaiak

---

erretilu *(orobat **erratilu**)* **1** *iz* plater-moduko handia. ik **azpil**.

Purpura morezko oihala zabalduko dute eskainiriko ogien mahai gainean ere, eta bertan isur-oparietarako azpilak, **erretiluak**, katiluak eta pitxerrak ipiniko dituzte; eskainiriko ogia etengabe egongo da mahai gainean. Elizen arteko biblia

Arrain handi ustelduak zeuden zilarrezko azpil dotoreetan; pastelak, ikatza bezain beltz erreta, **erretiluetan** metatuta zeuden. Iñaki Mendiguren

Adak niretzat utzitako gosariaren **erretilua** zegoen telebistaren eta nire artean: marmeladaren ontzia, azukrea, galletak, kafearen termoa... Anjel Lertxundi

Edarien **erretilua** prestatu nuen, eta egongelan sartu nintzen hura hartuta. Xabier Olarra

Printzesaren ezker-eskuin **erretiluak** daude; batean sagar gorri-gorriak, bestean marrubiak. Felipe Juaristi

Txakurra, gordelekutik irtenda, lasai-lasai ari zen bere **erretiluan** jaten. Juan Kruz Igerabide

Erretiluan, botila bat ardo eta edalontzi batzuk. Anjel Lertxundi

Baba-saldarekin batera pitxerra ere **erretiluan** jarri eta behera jaitsi nindunan. Anton Garikano

Mandatu-mutila barrura sartu zen, edontziak, izotz xehetuz betetako ontzi bat eta botila bat White Rock **erretilu** batean ekarriz. Lopez de Arana

Tom ostalaria agertu zen berriro, mantala lotarako jantzien gainetik jarrita zeukala, eta **erretilu** batean tea eta opil batzuk zekartzala. Iñaki Mendiguren

Maratilari jira eginda, esku batean **erretilua** zeraman emakume argaltxo bat sartu zen barrura. Joxemari Urteaga

Barra aurrean, zerbitzari bat zutik zegoen, koktel-edontziz betetako **erretilu** bat eskuan. Lopez de Arana

Zerbitzaria **erretiluan** bi plater ekarriz itzuli zen. Lopez de Arana

Merriman sartzen da; txartel bat dakar **erretiluan**. Antton Olano

Erretiluaren erdian, txerriki zatiz inguraturik, zakur batean burua zegoen, txerrikia bezala, labean erreta. Aitor Arana

Zerbitzaria platerak pilatzen hasi zen **erretilu** batean. Lopez de Arana

Neskame argalak gorputza pixka bat aurreratu zuen **erretiluari** estalkia kentzeko eta eskuan zeukan sardexka handiaz haragi puxka bat hartzeko. Aitor Arana

Cadinek **erretilua** lepotik zintzilikatu eta Pont Neuf edo Turbigo kaleetan barrena bioletak saltzera abiatu orduko, Marjolin urdaitegiaren inguruan hasten zen bueltaka. Karlos Zabala

Erretilutik ere ginebra-botila hartu eta zurrusta luze bat hustu zuen edalontzian, izotz-puskak erabat estali zituen arte. Josetxo Azkona

Erretilu bete somosa zekarrela bueltatu zen handik gutxira. Xabier Montoia

Erretiluz eta botilaz betetako mahaia bazterreraturik zegoen. Juan Kruz Igerabide

Han utzi du Carmen **erretilukoak** jasotzen. Iñaki Iñurrieta

San Joan Bataiatzailearen burua **erretiluan** ekartzeari buruzko istorioak erakusten du mito paganoek nolabait historia sakratua aberastu dutela. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erretilu handi bat beharko dugu gaur gauerako. Congo herrenka itzuli zen **erretilu** txiki batean hiru edontzi zituela. Anton Garikano

Askaren azpian, **erretilu** zabal bat zeukan jarria hondakinak biltzeko. Jon Muñoz

Erretilu obal luze batean jarri zituen xerrak, iluntzealdikoaren arrats hartan Jonathani itzuri zitzaion hartantxe. Jon Muñoz

Erretilu etrusko bat zen doi-doia. Koldo Izagirre

Zerbitzariak **erretilu** txilinaria sorbaldaren mailara jaso zuen eta ahurrean ezarrita eraman zuen. Lopez de Arana

Une hartan Nati jangelan sartu zen eskuetan metalezko **erretilu** distiratsu eta estali bat zekarrela. Aitor Arana

Gero, arrain ederrak zetozen, bakarka jarriak, zumezko **erretilu** banatan. Karlos Zabala

Etxezaina itzuli zen egongelara, zurezko **erretilu** eder batean ama-alaba iritsi berriek eskatutako edariak zekartzala. Aitor Arana

Sukaldeko armairuko apalik altueneraino altxatu zuen Jonathanek besoa, metalezko **erretilu** luze bat hartzeko, han jarri nahi baitzituen urdaizpiko-xerrak. Jon Muñoz

Nik korridorera begiratu nuen, ama baitzetorren sukaldetik kristalezko **erretilu** bat zekarrela. Anjel Lertxundi

Aurrez prestatutako janariak ekoizten ditu K-Onarik eta bera arduratzen da arrain haragiari itxura emateaz, hanburgerrak plastikozko **erretiluetan** sartzeaz eta halakoez. Berria - Harian

Zergatik **erretilu** zilarrezkoa eta ez zurezkoa? Anjel Lertxundi

Labeko **erretiluak** edo lapikoak parafinaz edo estearinaz igurtzi, eta orea bi ordu eta erdiz labean egosi. Josu Zabaleta

Txapazko **erretilu** zahar bat izan zuen bere lehengo panderoa. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mahaiari itzuli osoa egin zion, zilarrezko **erretilu**-estalkia jasotzen zuen bitartean. Lopez de Arana

Erretilu-babes bat baino ez da, badakizu. Mirentxu Larrañaga

Gehiegi eskatzea zen, orobat, neskameek bigarren afari-zerbitzu bat antola zezaten, edota haren **erretilu** garraioan ibil zitezen. Mirentxu Larrañaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Opil-**erretilua** kentzen dio eskuetatik Jacki. Antton Olano

Ontzi, kikara eta fruta-**erretilu** guztiak Chaire-nean lapurtuak ziren. Juan Garzia

Lehenengo urteko mutikoa gorri-gorri jarri zen, Dumbledore berari zuzendu zitzaiolako, eta eskuak dar-dar zituela saltxitxa-**erretilua** hartu zuen. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beteriko erretilu bat (3); **bi erretilu** (3); **erretilu bat** (18); **erretilu batean** (25); **erretilu handi** (3); **erretilu txiki** (3); **erretilua eskuetan** (3); **erretilua hartu** (4); **erretiluan utzi eta**

(3); **eta erretilu** (6); **eta erretilu batean** (3); **eta zilarrezko erretilu** (3); **fruta erretilu** (3); **zen erretilu** (4); **zen erretilua** (3); **zilarrezko erretilu** (8); **zilarrezko erretilu batean** (3)

erretilukada *iz* erretilu baten edukia.

Sam, nire etxezain filipinarra, kanpora ateratzekoa zen; beraz, whisky-ur **erretilukada** bat prestatu nuen. Xabier Olarra

-Izeba, horrek itxura bikaina dauka -esan zion mahaiaren erdira pla-pla egindako **erretilukada** legatza atera zuenean. Joxemari Urteaga

erretilutxo *iz* erretilu txikia.

Erakustokiaren marmola gorria zen, zain grisez tartekatua; haren azpian, arrautza saskiek klera zuritasuna zabaltzen zuten; eta, kaxetan, lastozko **erretilutxo** batzuen gainean, bata bestearen ondoan paraturiko neufchatel gazta txiki biribil batzuek eta dominen irudira ilaran ordenaturiko Gournayko gaztek geruza ilunagoak eratzen zituzten, tonu berdexkez uherturik. Karlos Zabala

erretina 1 *iz* begiaren barnealdeko geruza, argiarekiko sentibera dena.

Begiaren atzealdea geruza batez estalita dago: **erretina**; **erretina** horretan argi-hartzaileak edo errezeptoreak daude. Josu Zabaleta

Teoria honen arabera nerbioen arteko konexioek bi **erretinek** ematen dituzten informazio ezberdinetatik abiatuta informazio bateratu bat "sortzen" dute. Josu Zabaleta

Ez zen sekula argitu ea gaixotasun akutuak eragin zion **erretinetako** lesio hori, ala **erretinen** endekapena sortzetikoa zen. Xabier Olarra

"Oinarrizko" koloreetako -gorria, orlegia, urdina- izpi sorta txiki-txikiak nahastu bezala egiten dira **erretinan**. Josu Zabaleta

Erretinara iristen den argiaren bostena baino ez da makilek xurgatzen dutena. Irene Aldasoro

Aurrerantz mugitzen garenean (autoz, esate baterako) ikuspen-eremuaren aldaketa etengabeak halako fluxu gisako bat eragiten digu **erretinan**, aldakuntza-gradiente jarraitu bat. Josu Zabaleta

Koloreen pertzepzioa **erretinako** hiru kono mota desberdinen jarduerak erabakitzen du. Josu Zabaleta

Koloreekiko itsutasun erabatekoa, izan ere, konoek (hau da, **erretinako** zelula kolore-sentiberek) duten akats baten ondorio izaten da. Xabier Olarra

Erretinako hartzaile bakoitza nerbio-zelula banari lotuta dago sinapsi deitzen den errele baten bidez. Josu Zabaleta

Gibsonen teoriak **erretinako** proiekzioa gauza banaezintzat, analizaezintzat hartzea du ekarpenik berriena. Josu Zabaleta

Erretinako irudia (irudi optikoa) ikusten den eszenako gainazal desberdinen luminantzien proiekzio bidezko irudikapen bat da. Josu Zabaleta

"Erretinako irudia" ikusmen-sistemak argia tratatzeko duen prozesuaren aldi bat baizik ez da. Josu Zabaleta

Erretinako irudian gertatzen diren argitasunaren jarraitasun-etenak espazioari buruzko informazioa dira. Josu Zabaleta

Alor honetako eraginik ezagunena **erretinako** irudi-iraunkortasuna da: estimulua bukatu eta tarte batean hartzaileen jarduera luzatu egiten da oraindik. Josu Zabaleta

Gaur egun badakigu etengabeko kodetze bat gertatzen dela **erretinatik** hasi eta kortexeraino. Josu Zabaleta

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Teoria honen arabera, **erretina**-irudi bakoitzak pertzepzio global bakar bat ematen du. Josu Zabaleta

Begiak puntu baterainokoan argazki-makina baten antza badu ere, **erretina**-xafla sentikor bat balitz bezala ikus badaiteke ere, gero gertatzen da ikusmenezko pertzepzioaren parte nagusia. Josu Zabaleta

Ikusmeneko gorabehera bitxi haiek ez ote zizkioten, hein batez behintzat, odoleko oxigenoaren gorabeherek eragiten, eta ez ote zion horrek eragiten **erretina**- eta garun-anoxia. Xabier Olarra

Begiaren barneko geruza sentikorreko **erretina** zelula amak ikusmen arazoak konpontzeko erabil daitezkeela. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat da erretina (3); **da erretina** (4); **erretina askatzea** (3); **erretinako bi** (3); **erretinako irudi** (11); **erretinako irudi iraunkortasuna** (3); **erretinako irudi iraunkortasunak** (3); **erretinako irudi iraunkortasunaren** (3); **erretinako irudia** (9); **erretinako irudiak** (3); **erretinako irudiaren** (6); **erretinako proiekzioa** (3); **erretinako proiekzioak** (4); **erretinako zelula** (3); **erretinan eratzen** (4); **erretinaren eta** (3); **erretinetako bi** (3); **eta erretinako** (5); **eta erretinaren** (4)

erretineno *iz*

Izatez, **erretinenoz** (A bitaminaren antzeko material batez) eta opsina izeneko proteinaz osatua dago. Irene Aldasoro

Proteina guztiek oso molekula handiak dituzte, eta opsina molekulak badu azalean zulo bat **erretineno** molekula bat garbi-garbi egokitzen zaiona. Irene Aldasoro

Kuantu bat argiren energia xurgatzen denean, **erretineno** molekula, eraldatu, eta bere sargunetik irteten da. Irene Aldasoro

erretinitis *iz* erretinaren hantura.

Jarduerarik eza ezin zitzaion egotzi sorburuko gaixotasunari, **erretinitisari**, aspaldidanik gelditua baitzen gaitz hori. Xabier Olarra

Begi-lauso lodiak zituen, eta, esaten zutenez, **erretinitis** pigmentosoa ere bai, gaitz hereditario bat, erretinak jaten dituena, astiro baina erremediorik gabe. Xabier Olarra

erretinol *iz* A bitamina.

Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) aurkikuntza garrantzitsua egin dute **erretinolak** [...] leuzemia zelulak hiltzeko duen ahalmena agerian uzteko. Berria - Gaiak

erretinopatia *iz* erretinaren eritasuna, hanturaz bestelakoa dena.

Erretinako gaixotasun ohikoenak, berriz, honako hauek dira: makularen endekapena, erretina askatzea eta diabetesa, hipertentsioa, eta arteriosklerosia moduko gaixotasunen ondorioz sortzen diren **erretinopatiak**. Berria - Gaiak

erretinoskisi *iz* begiaren eritasuna, zeinean erretina berez bi geruzetan bereizten baita.

Bernabeu Institutuko adituek heredatutako itsutasunik ez duen haur bat jaio dela iragarri zuten atzo; haurraren aitak **erretinoskisia** du. Berria - Gaiak

Aitak **erretinoskisia** duen arren, haurra osasuntsu jaio da Alacanten. Berria - Gaiak

Erretinoskisiari aurre egiteko. Berria - Gaiak

erretira 1 *iz* erretiratzea, atzerantz egitea. ik **erretirada**.

Guretarren **erretira** baleztaz babestera saiatu zen, nonbait. Aingeru Epaltza

Udako **erretirak** ...! Agurtzane Juanena

Retegi pilotaria **erretirako** bidean. Herria

Guziek laudatzen dute gure xokoaren edertasuna eta aitortzen dute **erretirako** denbora etortzearekin, balinbadute aski diru, hemen nahi luketela finkatu eta ikasi euskara. Herria

Beren bizi guzia lanari jarraikiz, dantzak guti axolatzen dituztenek, eta **erretirako** sariari esker, zenbeit egun goxoren iragaiteko ahala dugunek deliberatu dugu, buruilaren 22an, elgarren artean zenbait egun eder bati lotuko garela. Herria

Steer-en begiekin jarraituko dugu Bilbotik Santanderrerako **erretira** nekosoa. Jokin Urain

Erretira txukun batean pentsatzeko ordua. Anton Garikano

Olazabalgo Don Tirso irundar aberatsa ere, artean, Donibane Lohitzunetik Parisa propio joana zela; Don Carlosi Santakrutzen **erretira** osoa irmoki eskatzekotan. Txillardegi

Dantzan segitu zuten gizonezkoek emakumezkoekin, dantzan printzeek herriko emakumerik politenekin, Tu-Mu, izan ezik, nekaturik zegoelako aitzakia baliaturik, goiz egin baitzuen **erretira**. Felipe Juaristi

Erretira egin du ahal duen lekutik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hartuik **erretira** ! Eta zabal bidia gazteei. Txillardegi

Azkenean, tira eta **erretira** , barnetegira! Jesus Mari Mendizabal

2 (hitz elkartuetan)

Trenez etortzea ez zaidala gaitz izango, neure **erretira** -etxetik ondoko geltokira ozta hiru kilometro daudelako. Txillardegi

Nahi zuenean nire **erretira** -lekura agertzeko. Txillardegi

Euskararen ikasten hasia baitzen, segi dezala kantatuz: Goazen etxera, goazen etxera, **erretira** ordu da! Herria

· Egun batez, soldadu-aldra txikiek tarteka etsaien frontean egiten zituzten eraso- **erretira** laburretako batean, zanga batetik sekulako orroak zetozela entzun omen zuen aitak. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erretira etxean (5)

---

erretirada *iz* erretiratzea, eskuarki gudaroste eta kidekoena. ik **erretira**.

Ustekabean, ordea, **erretirada** ihesi bihurtu zen. Josu Zabaleta

Gerra-nobela ere bada (Dunkerkeko **erretirada** maisuki deskribatuta dago), eta baita gerra-nobelaren aldaera den ospitale-nobela ere. Berria - Kultura

Erretiradan Coppi jeneralaren indarrek utzi dituzten hildakoek eta gerra tresneria ugariek beren gordinean hitz egingo diete Esku Hartze Ezaren Aldeko gobernuei; Gerra Zibilean nazioarteko faxisten esku hartzea eskandalagarria da. Edorta Jimenez

Hurrengo hiria, Rambouillet, **erretiradan** doazen alemanek ebakuatu berri dela diote. Edorta Jimenez

Hanka egin zuen gizonak, eta galopan aurreratu ziren **erretiradan** zetozen gudarietako batzuk. Edorta Jimenez

Haien ondotik, agur-emaileak, **erretiradan** . Aingeru Epaltza

Beiztegi kapitainak, bihotza garrazturik, **erretiradako** agindua jo zuen. Edorta Jimenez

Atzera doan barbaroak, bere **erretiradan** , maniobra-eremu mugagabea ireki duenean, guda-fronte aldakorra, lehenago edo geroago, lerro batera iristen da, non zibilizazio erasokorraren nagusitasun militarra neutralizatu egiten duen erasotzailearen operazio-basetik frontera dagoen tarte oso luzearen eragozpenak. Iñaki Mendiguren

Agure horrek jakin behar luke **erretirada** duela garaipenerako bide bakar, eta garaiz dago oraindik. Harkaitz Cano

Baina guardak herrian zeuden eta, **erretirada** aitzin, azken itzuli bat egin ohi zuten, segurtatzeko biztanleak oro beren etxeetan zeudela eta inguruetan mugimendu susmakorrik ez zela. Elena Touyarou

Ildo horretan, Israelgo Armadak atzo ohartarazi zuen tropen behin-behineko **erretirada** ez zuela gauzatuko, baldin eta eresistentziak herenegungoaren antzeko eraso gehiago egiten baditu. Berria - Harian

Don Alfonsoren **erretiradak** ez gintuen sobera harritu. Txillardegi

Ez dut ukatuko bart gaueko **erretirada** luzatu egin nuela... berbetan-berbetan azken taberna itxi egin genuela. Paddy Rekalde

---

erretirarazi, erretiraraz(i), erretirarazten *(orobat **erretirazi** g.er.)* du *ad* erretiratzera behartu.

Ezusteak eskua **erretirarazi** zidan atetik, bulkatzera nindoanean. Aingeru Epaltza

Neskak jaikitzeko asmoa erakutsi zuen, baina aitak, eskua **erretirarazi** , eta garrasi egin zidan: [...]. Anjel Lertxundi

Gaitz batek **erretirarazi** arte Israelgo lehen ministro izandako Ariel Sharonen semea. Berria - Mundua

Haien helburua CPE kontratua **erretiraraztea** zen, baina ministroak ez du horrelakorik hitzeman, alderantziz baizik. Berria - Ekonomia

Asmo horri jarraituz, 1813. urtean justiziarekin gorabeheraren bat zuten guztiak hiritik **erretirarazi** edo atxilotzeko bidea ezarri nahi izan zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskua erretirarazi (3)

---

erretiratu, erretira(tu), erretiratzen **1** da *ad* norbait edo zerbait dagoen tokitik edo egoeratik joan edo baztertu.

Mauresmok irabazi du Australiako Irekia, Henin-Hardenne **erretiratu** ostean. Berria - Kirola

Votre service!, esan, eta mahaitik **erretiratu** zen bi pauso, lagunari tokia egiteko. Anjel Lertxundi

Kontatzen dute 1818an [...] joko mahaiaren inguruan bi aurkari geratu zirela, gainerakoak -diru edo gogo faltaz- jokotik **erretiratu** zirenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lanak ondo doazela ikusi eta bere gelara **erretiratu** da atseden hartzera. Harkaitz Cano

Darfurko talde matxinoak Khartumekiko elkarrizketetatik **erretiratu** dira. Berria - Mundua

Salara **erretiratu** eta adi geratu zen, Karlosek ostatariari zerbait kontatuko ote zion beldurrez. Koro Navarro

Istilu bat lehertzeko zorian, amak pazientzia eskatzen zion aitari, aita amarekin haserretzen zen, eta elkarri xaxa eginez jardun ondoren, ama sukaldera **erretiratzen** zen negarrez hasteko puntuan, eta aitak egunkariaren atzean ezkutatzen zuen frustrazioa. Anjel Lertxundi

Egunean gutxienik bi orduz irakurri behar zuela erabakia zuenez, epe hori iragan artean ez zen ohera **erretiratzen** . Bego Montorio

Belateko gaina karlistek defendatua eta lubakiez babestua ikusi zuenean, Eugi aldera **erretiratu** eta Olaberriko mendatetik abiatu zen gero. Koro Navarro

Ohi baino askoz goizago **erretiratu** zen ostatura, afaria amaitu arte ere itxaron gabe. Jose Morales

Desertua leku berezia da, eta hara **erretiratzen** ziren antzinako denboretan munduaz aparte -gizarteaz, hiriaz aparte- bizi nahi zuten guztiak,. Bernardo Atxaga

Hil baino bi urte lehenago, La Verna mendiko eremitorio baztertura **erretiratu** zen, bere lagun-min anai Leonekin. beste anaia guztiak lotara **erretiratu** zirenean, zarata handi bat entzun zuen klaustroan. Fernando Rey

Haraxe **erretiratua** izango zela seguruen. Anjel Lertxundi

Erleak erlauntzetara **erretiratzeko** orduan. Anjel Lertxundi

Pinochet Armadatik **erretiratu** zen eta bizi osorako senatari izendatu zuten, baina Londresen atxilotu zuten. Berria - Mundua

-Ez, aita, **erretiratuta** nago negoziotik. Jon Maia

-Amodiotik **erretiratua** zaudela diozu, desorekatu zintuen nahigabe batetik irten eta zeure izaera berriro nibelatzeko. Pako Aristi

Bere koinatua ere txokora telebista ikustera **erretiratu** zela. Harkaitz Cano

Sasoikoak (--?) banaka batzuk bakarrik gara; ia dena jubilatu jendea dabil, zeregin latzetatik latzagoa den zer eginik ezera **erretiratuak**. Iñaki Segurola

«Nazioarteko okupazio indarrak **erretiratzeko**» eskatu du FPIk. Berria - Mundua

Etzi, 16.49an **erretiratuko** da eguzkia. Pello Zabala

2 (gauean) etxeratu.

Nire lantokiko gaxte odolgabeak apezkumeak baino goizago **erretiratzen** dituk gauaz. Aingeru Epaltza

Zergatik **erretiratzen** zarete denok hain goiz? Pako Aristi

Gauerdian bukatu zen festa, pozik handienaz, eta orduan **erretiratu** ziren denak. Koro Navarro

3 gudarosteak eta kidekoak atzerantz egin.

Haren asmoa, hasieran, muga itxi eta armada karlistako soldaduei Frantziara **erretiratzea** galaraztea zen, baina hori ezinezkoa zen erabat. Koro Navarro

Biharamunean Urantziara **erretiratu** ziren liberalak presaka eta muturka. Txillardegi

Goizean jakin baitzuten hegoaldean, Tellamendiren atzean, CNTko bi batailoi frontetik **erretiratu** zirela. Ramon Saizarbitoria

Erretiratu zirenean, alemanek zubiak bota eta minaz erein zituzten bazterrak, ibi inguruetako bi aldeetan bai eta bestaldeko ertzean ere. Koldo Biguri

Itunari jarraiki, Irlandako 26 konderritatik **erretiratu** zen Londresko administrazioa eta armada. Berria - Harian

Shimon Peres buru duten laboristak gobernuan sartuz gero, Sharonek gehiengo parlamentarioa eskuko izango luke Gazatik **erretiratzeko** plana bideratzeko. Berria - Mundua

Lurralde okupatuetatik **erretiratzeko** erabakiak gizarte osoarena behar du, ez soilik alderdi batena. Berria - Mundua

Mexikok Habanan duen enbaxadorea **erretiratu** eta Kubako ordezkaria kanporatu izanak ez dela «harreman diplomatikoak haustea» esan zuen atzo Gobernu mexikarrak. Berria - Mundua

4 adin jakin batera iritsiz, lanbidea eta kidekoak utzi, eskuarki erretiroa jasoz.

Suhiltzaileek hainbat mobilizazio egin dituzte azken egunotan 55 urterekin **erretiratu** ahal izatea eskatzeko. Berria - Ekonomia

69 urte dituela **erretiratuko** da munduan den kantaririk onenetakoa. Berria - Kultura

Nik, **erretiratu** aurretik, beste Tour bat korritu nahi nuen, nahi dut, kosta ahala kosta. Berria - Kirola

Portugalen irakasten zuelarik soldata ederra irabazten zuen, orain **erretiratua** da eta bertute handiko pertsona eredugarriaren bizia darama. Piarres Xarriton

"Hirurogei urterekin **erretiratu** behar diat", abisatu zion Egañazpiri. Iñigo Aranbarri

Hauxe dut beharbada azken aukera gailurra jo eta diru apur batekin **erretiratzeko**. Oskar Arana

Erretiratzeko adina 85 urtera atzeratu beharko litzateke. Berria - Ekonomia

Navalen 578 langile aurrez **erretiratzeko** espedientea, tramitera. Berria - Ekonomia

Beste 52 behargin aurrez **erretiratzeko** plana onartu eta BBK-k amaitutzat eman du prozesua. Berria - Ekonomia

Egun Izarrek dituen 11.000 langileetatik %40 inguru aurrez **erretiratzeko** asmoa du exekutiboak. Berria - Ekonomia

Zeppo, anaiarik gazteenak, film gutxi egin zituen bere anaiekin: 1935ean **erretiratu** zen. Harkaitz Cano

Urbiako Udaleko idazkari izan zen Don Fermin urte askoan, **erretiratu** zen arte, haren alabak nekazari aberats bat esposatu zuenean. Koro Navarro

Urteak zeramatzan dantzaldirik edo festarik huts egin gabe, eta ez zuen ematen **erretiratzeko** asmotan zebilenik: emanaldietarako txaketak eta gorbatak lehen egunean bezain txukun jarraitzen zuten bere entsegu gelan. Bernardo Atxaga

Izan ere, nagusi eta zuzendari aspaldikoa **erretiratu** egin zen eta klinika, hiritik kanpoaldean zegoen villa moduko bat, saldu egin nahi zuen lehenbailehen. Joxemari Iturralde

Erakunde hau **erretiratutako** ofizialek osatzen dute. Pako Aristi

Huraxe omen zen borreroa izatekoa, Domingo **erretiratzean**. Aingeru Epaltza

Denboratxo bat zeraman irakaskuntzatik **erretiratuta** eta bakar-bakarrik bizi zen etxetxo urrun hartan. Koldo Biguri

Pettan Lacaze lanetik **erretiratua** da berriki baina oraindik ongi da gorputzez, izpiritua beti berdin zorrotz dauka eta bihotza emankor. Herria

· Erretiroan bezala bizi naiz, bizitzaren gorabehera garrantzitsuenetik **erretiratua**, ofiziotik **erretiratua**, Pako Aristi

• **5** du *ad* dagoen tokitik edo egoeratik kendu; baztertu, urrundu.

Vioxx artritisaren aurkako botika **erretiratu** egin dute. Berria - Gaiak

Bageneukan botikaren fitxa teknikoan ohartarazpen txiki bat jartzea, baina zentzuzkoena sendagaia **erretiratzea** zela iruditu zitzaigun. Berria - Gaiak

Erretira ditzaten «gezurrezko mezuak» produktuen publizitatetik; esaterako, «airea garbitzen du», edo «produktu naturala». Berria - Gaiak

WWF Naturarentzako Mundu Funtsak arbola hilak ez **erretiratzeko** eskatu du. Berria - Gaiak

'Science' aldizkariak Hwang Woo-suken ikerlanak **erretiratu** ditu. Berria - Gaiak

Gasteizko udal haur eskoletako Langileen Batzordeak atzo iragarri zuen auzitara joko duela PPk uztailaren 27an izenpetutako dekretua **erretiratzen** ez badu. Berria - Euskal Herria

Atzera egin, eta gorputza **erretiratu** zuen Noraren aitak baranda gainetik. Anjel Lertxundi

Gero, ohean agondu, eta tapakiak **erretiratu** zituen. Inazio Mujika Iraola

"Noiz **erretiratu** behar dituzte marmol puska horiek?", esan zuen Agustinek bonbak txikitutako monumentuaren hondakinei begira. Bernardo Atxaga

Zerbitzari gazte bat inguratu zitzaigun oraingoan eta edalontziaren kristal pusketak hasi zen kontu handiz **erretiratzen**. Joxemari Iturralde

Angelok eskua **erretiratu** zuen nire kopetatik eta, besterik esan gabe, alde egin zuen. Anjel Lertxundi

Ez zela gose esan eta platera **erretiratu** zuen arrebak. Anjel Lertxundi

Afaldu gabe nengoen, eta ailegatu nintzeneko aspaldi zeuden **erretiratuak** barraren azal zikina beztitzen duten pintxo itxuragabeak. Aingeru Epaltza

Erretiratu zuten gorputza eta itxi zen haientzat berriro horrelako saminaren testigu izango ez zen atea. Askoren artean

Aurpegira eraman nuen gero argia, baina berriro **erretiratu** nuen. Anjel Lertxundi

Maindirea **erretiratu** nuen tentu handiz, ez nuen eta Ada esnatu nahi. Anjel Lertxundi

Pentsiora heldu zenetik -ia egun oso bat- ez zuen leihatetik begiratu; are gehiago, gortinak ere ez zituen **erretiratu**. Unai Elorriaga

Baldarkeria deituko al hiokeen? -mikaztu zitzaidan Ada, eta begirada **erretiratu** zuen eskaileretatik. Anjel Lertxundi

Hantxe geldirik hura, aireratzeko prest, itxuraz; **erretiratuak** zituzten Shell-tankeak, baina artean helizeak martxan jarri gabeak. Joxe Austin Arrieta

Jaungoikoak bere babesa **erretiratuko** balio, munduak ez luke begien itxi-ireki bat ere iraungo. Imanol Unzurrunzaga

-Konpañero, oraintxe esan dituan hitz horiek **erretiratzea** agintzen diat! -Romanek, handikiro. Inazio Mujika Iraola

6 (era burutua izenondo gisa)

Hango irakasleak ofizial **erretiratuak** ziren. Xabier Olarra

Itsas administrazioko komisario **erretiratua** da. Monika Etxebarria

Kontua ez da hemen bukatzen; zeren eta bere garaian etorkin **erretiratuen** seme-alabek ezkondu eta beren seme-alabak izaten baitzituzten. Iñaki Mendiguren

Bazter guztiak piparen keaz betetzen zizkion husar-teniente **erretiratu** bat. Jose Morales

Marinelak, baina gehienbat gezurrezko marinelak edo marinel **erretiratuak**, painulua lepoan eta txano biseraduna buruan. Fernando Rey

Kondairen lilura ahazteko oraindik aski gaztetxoa zela, osaba militar **erretiratu** batek aberriaren aintzak eta izugarrikeriak kontatzen zizkion Rufini. J.M. Olaizola "Txiliku"

Barau luzeek eta bizitza **erretiratuak** aldarazi egin zuten andre gaztearen kera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bizimoduko aldaketa batekin batera etorri zen joera berri hori: izan ere, bizitza **erretiratua** egiteari pixka bat utzi, eta biziberritze sozial eta sexualeko aldi bat estreinatu zuen, beldurra eta depresioa gainditu eta bizitzara itzulirik. Xabier Olarra

7 (era burutua izen gisa)

Hamarreko txikian aritu zen hobekien, agian, Joseba Beltza etxarriarra, oso ongi sartu baitzen bere auzoko eraikuntza lanak bukatu eta zer eginik ez zuen **erretiratuaren** larruan. Berria - Kultura

Talde bakoitzean **erretiraturen** bat ere badutela gaineratu du Aranburuk. Berria - Euskal Herria

Luxembourgeko **erretiratuekin** kroketean aritzera joanen ote naiz? Monika Etxebarria

Erretiratuek eta ezinduek dituzte pentsio handienak; 806 euroko pentsioa EAEn eta 680 eurokoa, berriz, Nafarroan. Berria - Ekonomia

Anachorêtês, jatorriz bizitza praktikotik **erretiratuei** aplikatzen zitzaien, bai beren buruak kontenplazio filosofikora emateko, bai gehiegizko zergen aurka protestatzeko. Iñaki Mendiguren

Erretiratuen elkarteko adarra da Beti Alai. Lander Garro

Baratzea, animaliak, etxea... baina hemen... arratsaldero **erretiratuen** etxean egiten dugu bat, kartetan aritzeko. Edurne Elizondo

Erretiratuen egoitzan ez zegoen Andoniren mailako diplomatikorik. Lander Garro

Denak ziren **erretiratu** itxurakoak, hogeita hamar inguruko emakume bat izan ezik. Ramon Saizarbitoria

Gehienetan, *Al filo de lo imposible* programaren ikusle okituak izaten dira, ohartu berri direnak hiriko **erretiratuen** pasealekura kondenatuak izateko bezperan daudela. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldera erretiratu (5); **armada erretiratu** (3); **aspaldi erretiratu** (3); **atbk aurrez erretiratu** (3); **aurretik erretiratu** (4); **aurrez erretiratu** (18); **aurrez erretiratu gura** (3); **aurrez erretiratu nahi** (7); **bakartietara erretiratu** (3); **bat erretiratu** (5); **batera erretiratu** (8); **batera erretiratu zen** (6); **bere gelara erretiratu** (5); **berehala erretiratu** (3); **da erretiratu** (3); **dendara erretiratu** (3); **edo erretiratu** (4); **ere erretiratu** (6); **erretira dezan** (5); **erretira ditzan** (4); **erretira etxean** (5); **erretiratu ahala** (4); **erretiratu arren** (4); **erretiratu aurretik** (10); **erretiratu baino** (4); **erretiratu baino lehen** (4); **erretiratu baitzuen** (3); **erretiratu bat** (3); **erretiratu batek** (4); **erretiratu baten** (8); **erretiratu behar** (21); **erretiratu behar izan** (7); **erretiratu beharko** (3); **erretiratu da** (19); **erretiratu dira** (12); **erretiratu ditu** (8); **erretiratu dituzte** (3); **erretiratu du** (5); **erretiratu dut** (3); **erretiratu egin** (66); **erretiratu egin behar** (5); **erretiratu egin zen** (32); **erretiratu egin ziren** (5); **erretiratu egingo** (14); **erretiratu egingo da** (3); **erretiratu egiten** (8); **erretiratu eta** (48); **erretiratu eta gero** (4); **erretiratu ezean** (7); **erretiratu ginen** (4); **erretiratu gura** (4); **erretiratu gura ditu** (3); **erretiratu izana** (3); **erretiratu nahi** (19); **erretiratu nahi ditu** (4); **erretiratu nahi du** (4); **erretiratu nahi duela** (3); **erretiratu nintzen** (8); **erretiratu nuen** (8); **erretiratu ondoren** (14); **erretiratu ostean** (8); **erretiratu zela** (8); **erretiratu zen** (93); **erretiratu zen bere** (4); **erretiratu zen eta** (4); **erretiratu zenean** (5); **erretiratu zenetik** (4); **erretiratu zion** (3); **erretiratu ziren** (31); **erretiratu zirenean** (6); **erretiratu zituen** (11); **erretiratu zituzten** (3); **erretiratu zuen** (23); **erretiratu zuten** (6); **eskua erretiratu** (17); **eskua erretiratu zuen** (7); **eta erretira** (3); **eta erretiratu** (23); **eta erretiratu egin** (9); **etxera erretiratu** (4); **gabe erretiratu** (6); **gazatik erretiratu** (6); **gelara erretiratu** (10); **gelara erretiratu da** (3); **gelara erretiratu zen** (4); **handik erretiratu** (4); **hotelera erretiratu** (3); **hura erretiratu** (3); **iraketik erretiratu** (6); **leku bakartietara erretiratu** (3); **logelara erretiratu** (3); **lotara erretiratu** (3); **mundutik erretiratu** (3); **noiz erretiratu** (4); **orduan erretiratu** (3); **soldadu erretiratu** (3); **soldaduak erretiratu** (8); **tropak erretiratu** (5); **tropak iraketik erretiratu** (3)

aldez aurretik erretiratuko (3); **aurretik erretiratuko** (4); **aurrez erretiratuko** (8); **aurrez erretiratuko ditu** (3); **aurrez erretiratutako** (3); **erretiratua baitzen** (3); **erretiratua bizi** (3); **erretiratua da** (5); **erretiratua zela** (4); **erretiratua zen** (29); **erretiratua zen eta** (5); **erretiratuak dira** (3); **erretiratuak ziren** (5); **erretiratuen alderdia** (3); **erretiratuko balitz** (3); **erretiratuko da** (8); **erretiratuko dela** (5); **erretiratuko dira** (4); **erretiratuko diren** (4); **erretiratuko ditu** (10); **erretiratuko dituela** (16); **erretiratuko dituen** (3); **erretiratuko dituzte** (5); **erretiratuko dituztela** (5); **erretiratuko du** (5); **erretiratuko zela** (5); **erretiratuko zirela** (3); **erretiratuko zituela** (4); **erretiratuta dago** (3); **erretiratuz gero** (4); **eta erretiratuen** (5); **etxera erretiratua** (3); **etxera erretiratua zen** (3); **etxerat erretiratua** (3); **gelara erretiratua** (3); **iraketik erretiratuko** (3); **militar erretiratuk** (3); **militar erretiratuko** (3); **orain erretiratua** (3); **soldaduak erretiratuko** (12); **soldaduak erretiratuko dituela** (5); **tropak erretiratuko** (6); **tropak erretiratuko dituela** (3); **xaharretxerat erretiratua** (4); **xaharretxerat erretiratua zen** (4)

aldez aurretik erretiratzea (3); **aurretik erretiratzea** (4); **batzuetatik erretiratzea** (4); **da erretiratzea** (3); **erretiratzea da** (6); **erretiratzea erabaki** (19); **erretiratzea erabaki zuen** (9); **erretiratzea erabaki zuten** (3); **erretiratzea eskatu** (4); **erretiratzea eskatzeko** (3); **erretiratzea eta** (9); **erretiratzea ez** (4); **erretiratzea izan** (3); **erretiratzea onartu** (4); **erretiratzea zen** (4); **erretiratzeak eragin** (3); **erretiratzearekin batera** (3); **erretiratzearen alde** (3); **erretiratzearen aurka** (4); **erretiratzearen kontra** (3); **erretiratzeari uko** (3); **erretiratzeari uko egin** (3); **eta erretiratzea** (5); **ez erretiratzea** (3); **gazako erretiratzea** (7); **gazatik erretiratzea** (11); **gazatik erretiratzearen** (4); **hautagaitza erretiratzea** (3); **iraketik erretiratzea** (5); **soldaduak erretiratzea** (5); **tropak erretiratzea** (8); **zati batzuetatik erretiratzea** (3)

aurrez erretiratzeko (18); **aurrez erretiratzeko asmoa** (3); **bertatik erretiratzeko** (3); **cpe erretiratzeko** (4); **erretiratzeko adina** (8); **erretiratzeko agindua** (3); **erretiratzeko alde** (4); **erretiratzeko alde bakarreko** (4); **erretiratzeko asmoa** (12); **erretiratzeko asmoa agertu** (4); **erretiratzeko asmorik** (5); **erretiratzeko aukera** (3); **erretiratzeko duen** (5); **erretiratzeko erabakia** (6); **erretiratzeko eskaera** (3); **erretiratzeko eskatu** (34); **erretiratzeko eskatu dio** (5); **erretiratzeko eskatu du** (5); **erretiratzeko eskatu dute** (5); **erretiratzeko eskatu zion** (10); **erretiratzeko eskatzen** (4); **erretiratzeko eta** (5); **erretiratzeko garaia** (4); **erretiratzeko manua** (3); **erretiratzeko ordua** (6); **erretiratzeko plana** (23); **erretiratzeko plana onartu** (4); **erretiratzeko planaren** (8); **erretiratzeko planari** (4); **erretiratzeko prest** (3); **erretiratzen ari** (12); **erretiratzen bada** (5); **erretiratzen da** (10); **erretiratzen denean** (4); **erretiratzen denerako** (3); **erretiratzen diren** (4); **erretiratzen ez** (5); **erretiratzen hasi** (16); **erretiratzen hasi zen** (5); **erretiratzen hasi ziren** (7); **erretiratzen zen** (8); **eskualdetik erretiratzeko** (4); **eta erretiratzeko** (6); **etxera erretiratzen** (3); **ez erretiratzeko** (5); **ez erretiratzeko eskatu** (4); **gazako kaleetatik erretiratzeko** (3); **gazatik erretiratzeko** (51); **gazatik erretiratzeko alde** (4); **gazatik erretiratzeko duen** (3); **gazatik erretiratzeko plana** (17); **gazatik erretiratzeko planaren** (7); **gazatik erretiratzeko planari** (4); **gazatik erretiratzen** (3); **indarrak erretiratzeko** (3); **iraketik erretiratzeko** (9); **israel gazatik erretiratzeko** (3); **israel gazatik erretiratzen** (3); **israelek gazatik erretiratzeko** (4); **kaleetatik erretiratzeko** (3); **langileak aurrez erretiratzeko** (3); **mugetara erretiratzeko** (3); **okupazio indarrak erretiratzeko** (3); **plana erretiratzeko** (6); **proposamena erretiratzeko** (4); **sharonek gazatik erretiratzeko** (5); **soldaduak erretiratzeko** (11); **soldaduak erretiratzen** (4); **tropak erretiratzeko** (13); **tropak erretiratzen** (3)

---

erretiratze *iz* norbaitez edo zerbaitez mintzatuz, dagoen tokitik joan edo baztertzea; adin jakin batera iritsiz, lanbidea eta kidekoak uztea, eskuarki erretiroa jasoz.

Gazako **erretiratzea** gauzatzeko, soldaduek psikologikoki prestatzen hilabeteak eman dituztela esan zion berriari, **erretiratzea** hastear zela. Berria - Harian

Erretiratzearen ondorengo hiru hilabeteotan soldadu israeldarrek hamabost ekintzaile hil zituztela zehaztu zuen. Berria - Mundua

Israelek eta PANek hitzartuko beharko lukete **erretiratzeen** plana. Berria - Mundua

Hedatze eta ondorengo **erretiratze** honen kausak aztertzen dira. Iñaki Mendiguren

Colin Powell amerikar Estaduko segetarioak berak du **erretiratze** hori salatu, eta Paul Bremer armaden buruak gauza bera erran du. Herria

Bizitza Mundu Berrian berriro hastera kontinente zaharreko arazoetatik libratzeko irrikak bultzatu zituen, eta **erretiratze** hori egiteko izan zuten itxaropenaren baikortasuna bat zetorren amerikarren belaunaldi bizia bere nahitaezko itzulera egiten ari zen damuaren bizitasunarekin. Iñaki Mendiguren

Batzuetan esan izan da Ekialdeko Erromaren ideal aszetikoa bere garaiko mundutik **erretiratze** antzua zela. Iñaki Mendiguren

Erretiratze lotsagarria izan zen. Berria - Mundua

Estatu Batuek ezingo dute Iraketik **erretiratze** duinik egin, beren presentzia ez delako izan duina. Berria - Mundua

Alde bateko **erretiratzerik** ez du nahi Liga Arabiarrak. Berria - Harian

Bere irudipenezko usteak atsekabetzen du Hesiodo, hots, Aro Iluneko jendeari eutsi zioten argi ahul hauen **erretiratzeak** betiko iluntasunaren hasiera iragartzen duela. Iñaki Mendiguren

Aurreikuspen eta **Erretiratze** funtsetan jarritako diruak %25 egin du gora. Berria - Ekonomia

Beste hitz batzuetan esanda, langileen aldez aurretiko **erretiratze** planarekin jarraituko dutela. Berria - Ekonomia

Filemon Galarzaren arabera, berriz, **erretiratze** lanak «zentzuz» egingo dira. Berria - Ekonomia

Bigarren berria, etxe bat erosi duela bost miliun eurotan bere **erretiratze** denbora jinen zaioneko. Herria

Likudek ere gaitzetsi du Sharonen alde bakarreko **erretiratze** egitasmoa. Berria - Mundua

Epe laburrera **erretiratze** osorik gertatzea baztertu zuen, baina, Reidek. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdikideekin erretiratze (3); **alderdikideekin erretiratze plana** (3); **da erretiratze** (3); **erretiratze duinik** (3); **erretiratze plana** (27); **erretiratze plana aurrera** (3); **erretiratze planarekin** (4); **erretiratze planaren** (16); **erretiratze planaren aurka** (3); **erretiratze planari** (5); **erretiratze planari aurre** (3); **erretiratze planean** (3); **eta erretiratze** (3); **gazako erretiratze** (3); **likudeko alderdikideekin erretiratze** (3)

---

erretirazi ik **erretirarazi**.

erretiro **1** *iz* erretiratzea; adin jakin batera iritsiz, lanbidea eta kidekoak uztea; lanbidea uztean jasoten den soldata modukoa. ik **erretreta**.

Besteak beste, [autonomoen] **erretiroa** arautzen du, eta jarduera eteten denean langabezia sari bat jaso ahal izateko aukera ematen die. Berria - Ekonomia

Lizarra aldera joan zen, aitari bisita egitera: **erretiroa** pasatzeko asmoz, lana utzi bezain laster etxetxo bat erosi zuen inguru haietako herrixka batean, eta han bizi zen, amarekin, lorategia zaintzen, paseo luzeak ematen, eta, garaia zenean, onddoak biltzen. Iban Zaldua

Erretiroan pentsatzen hasi dela aitortu du Unai Yusek. Berria - Kirola

Aitak bere **erretiroaren** diru apurra jaso zuenean, aurreraturik zeukan diru pixka batekin osatu, eta telebista bat erostea erabaki zuen. Juan Kruz Igerabide

Berak, benetan bere gogoz, **erretiroa** lanean pasatuko zuen: lanean erakusten. Arantxa Iturbe

-Nik nahi dudana egingo dut neure **erretiroarekin**, aditu? Jon Muñoz

Zorionez edo zoritxarrez, senarrari **erretiroa** eman zioten gaixotasun bat medio. Berria - Euskal Herria

2003. urtean **erretiroa** eskatu zenuen, eta hiru ordezko proposatu zenituen. Berria - Harian

-Urteak ere izango ditu-eta, **erretiroa** hartu nahiko du. Xabier Mendiguren Elizegi

Erretiroa hartu aurretik, Musikaren Historia irakatsi beharra egokitu zitzaion zenbait urtez. Imanol Zurutuza

Aita, aldiz, gero eta eroriago; gutxi geratzen zitzaion **erretiroa** hartzeko, baina beldur nintzen ez ote zen iritsiko. Juan Kruz Igerabide

Artikulu sail bat idazten hasi zen Jexux Lete lanetik **erretiroa** hartutakoan, *Orrela ziran gauzak* izeneko liburuan bildu zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai bateko herri aberats hark, gerra aurretik bostehun biztanleren bizileku izana, hirurogeita hamar lagun besterik ez du orain, guztiak zaharrak edo **erretiroa** hartuak. Xabier Olarra

Erretiroa harrarazi zioten ikasgeletara irakasle jantziekin joan zelako hiruhileko notak irakurtzera. Monika Etxebarria

Izan ere, San Matia egunez, arratsaldeko 7tan tokatzen zaio **erretiroa** eguzkiari. Pello Zabala

Sanjoanetatik honuntza 59 minutu aurreratu du [eguzkiak] **erretiroa**. Pello Zabala

Protesten harira euren **erretiroa** igotzeko promesa egin die Gobernuak. Berria - Harian

Atzo onartutakoaren arabera, hau da helburua: **erretiroa** 2030. urtean soldata gordinaren %43 baino txikiagoa izatea saihestea. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bien bitartean, 58 urte baino gehiago dituzten langileek **erretiro** aurreraturako plan berezia onartzeko aukera dute. Berria - Harian

Errelebu kontratuak: 60 urtetik gorako langileentzat **erretiro** partziala sustatzeko borondatea. Berria - Ekonomia

Aitari **erretiro** ederra geratu zitzaion Ur Partzuergotik, BBK-ko pentsio plana kontatu gabe. Patxi Iturritegi

Joseba Azkarragaren departamenduak ez du uste etorkizunean sistema publikoak gazteei **erretiro** duinak ziurtatuko dizkienik. Berria - Ekonomia

Ilea urdintzen eta sabelaldea loditzen hasiak dituen arren, sasoiko dagoela ikusten da eta **erretiro** zoriontsua agintzen duten iragarkietako aitona gazte horietako bat dirudi. Joxean Agirre

Ardoak garraztu zuen gure aitaren **erretiro** patxadatsua, eta familiako negozioa erreka jotzeko kinka larrian ezarri. Javi Cillero

Enrike, berriz, bakarrik zegoen, Compañía Vascongada de Segurosekoekin tirabiretan, **erretiro** aurreratua edo elbarritasun osozkoa lortu ezinik. Iñaki Iñurrieta

Lantegia bideraezina dela onartu dute sindikatuek eta aurretiko **erretiroak** eskatu dizkiote zuzendaritzari. Berria - Ekonomia

Eta etorri zitzaian, jakina, urrezko **erretiro** hori. Jokin Muñoz

Adinekoa zelako-edo, matematikako beste irakasle bat ere kontratatu zuten, haren erabateko **erretiroa** aurki zetorrela-eta, ordu batzuk kentzeko eta ordezkotza prestatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erretiro adina 65 urtetik 67ra igoko da. Berria - Mundua

CGPJk jarri dituen epeekin, ordea, Zorrillaren **erretiro** egunaren biharamunean hartuko du kargua lehendakari berriak. Berria - Euskal Herria

Gaur fraile xaharren **erretiro** etxe bilakatu da. Xipri Arbelbide

Baionako ospitalea eta hamabost **erretiro** etxe eskuz-esku ari dira lanean adineko jendearen alde. Herria

Hilero-hilero, eroale jakin baten bitartez, Ramires-Araujo Lda. enpresako gutun-azal betea jasotzen zuen, **erretiro** pentsioaren kariaz. **Erretiro** Funtsaren bidez jartzen zuen orain arte dirua. Bego Montorio

Oraindik hamar urte inguru gelditzen zitzaizkion erretiroa hartzeko, baina nagusiek, haren gaixotasuna eta hogeita bost urteko zerbitzu akatsgabea aintzat harturik, **erretiro**-saria ematea erabaki zuten. Jose Morales

Egun lanean hasten diren gazteek arazoak izango dituzte etorkizunean **erretiro** soldata duinak jasotzeko. Berria - Harian

Lehenago neure artritis eta **erretiro**-diruez nenbilen axolaturik. Gotzon Garate

-Adizu, Joseba, hilabete honetako **erretiro** txekea oraindik ez zait ailegatu. Iñaki Zabaleta

Beren **erretiro**-lekuetatik eragin handiagoa izan zuten munduan enperadoreak hiriburutik baino, Ostegun ta Ostiral santuz, ta larunbatez ere bai, Abemaritako **erretiro** ordua aurreratu egiten zen, denak etxera garaiz biltzeko. Iñaki Mendiguren

Elizak bere **erretiro** giroaz kutsatu zuen gure herriotako giroa ere. Pello Zabala

Bare eta barraskiloak goizean goiz zainduko zituen, ea ur-erretenetik asko aldendu ziren, eta ea goizean goiz noruntz jotzen zuten, **erretiro**-martxa ala lasai zihoazen kanporuntz. Pello Zabala

Gaur fraile xaharren **erretiro** etxe bilakatu da. Xipri Arbelbide

Baionako ospitalea eta hamabost **erretiro** etxe eskuz-esku ari dira lanean adineko jendearen alde. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Funtzionarioak esan zionez, aurre-**erretiroa** hartzeko zerrendan zegoen; erretiro-sari txiki bat emango zioten. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaituta erretiroa (5); **amaituta erretiroa hartuko** (5); **aurre erretiroa** (7); **aurre erretiroa hartu** (3); **aurretiko erretiroa** (3); **biskoubik erretiroa** (3); **claude biskoubik erretiroa** (3); **da erretiroa** (3); **dira erretiroa** (4); **du erretiroa** (8); **edo erretiroa** (4); **erretiro adina** (9); **erretiro aurreratua** (7); **erretiro pentsioa** (5); **erretiro pentsioak** (4); **erretiro saria** (3); **erretiroa eta** (7); **erretiroa har** (3); **erretiroa hartu** (71); **erretiroa hartu arte** (3); **erretiroa hartu aurretik** (5); **erretiroa hartu berria** (4); **erretiroa hartu du** (5); **erretiroa hartu ondoren** (5); **erretiroa hartu zuen** (9); **erretiroa hartu zuenean** (3); **erretiroa hartu zuenetik** (4); **erretiroa hartuko** (43); **erretiroa hartuko baitu** (4); **erretiroa hartuko du** (16); **erretiroa hartuko duela** (12); **erretiroa hartuko dute** (3); **erretiroa hartuta** (9); **erretiroa hartutako** (4); **erretiroa hartutakoan** (4); **erretiroa hartzea** (13); **erretiroa hartzea erabaki** (6); **erretiroa hartzeko** (28); **erretiroa hartzeko asmoa** (3); **erretiroa hartzeko asmorik** (4); **erretiroa hartzen** (5); **erretiroa hartzera** (3); **erretiroa jasotzeko** (3); **erretiroak eta** (3); **erretiroan pentsatzen** (7); **eta erretiro** (12); **eta erretiroa** (25); **eta erretiroa hartu** (10); **eta erretiroa hartzeko** (4); **eta erretiroen** (3); **hartu zuen erretiroa** (5); **iragarri zuen erretiroa** (3); **sasoia amaituta erretiroa** (3); **urterekin erretiroa** (3); **zuen erretiroa** (10)

---

erretiroaldi *iz* erretiratze aldia.

-Erretiroaldi bat egin eta gure bekatuak aitortzera goaz denok, Jainkoak badaki nolako premia dugun eta. Irene Aldasoro

Joaterik ez zeukala esan zidan, aste hartan **erretiroaldi** bat izatekoa zela-eta beraren komentuan. Irene Aldasoro

Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadea hedatzealdian sartu zen hamaikagarren mendean, eta ondoren bi mende geroago kolapso eta **erretiroaldian** muga batzuetan, baina ez beste batzuetan. Iñaki Mendiguren

---

erretirodun *iz* erretiroa duen pertsona.

Langileek, langabeek eta **erretirodunek** pairatuko dituzte inflazioaren «ondorio latzenak», CCOOren ustez. Berria - Ekonomia

Wagonerrek aurreikusi du 14 lantegi itxiko dituela AEBetan, 30.000 lanpostu suntsituko dituela eta bulegarien osasungintzako gastuak eta **erretirodunen** pentsioak jaitsiko dituela. Berria - Ekonomia

20 milioi **erretirodun** dituen herrialdean pentsioen igoerak izoztea eta erretiratzeko adina 65 urtetik 67ra atzeratzea erabaki du. Berria - Ekonomia

Han ezagutu zuen Ursula, Nekazaritza Ministerioko funtzionario ohia, bera bezala **erretiroduna**; lagun egin ziren. Iban Zaldua

---

erretizentzia *iz* uzkurtasuna, mesfidantza.

Erretizentziaz mintzatzen zen faxismoaz eta gerraz, eta interpretatzen neke izan ez nuen alai-aire makur batekin. Juan Garzia

Zuen lana proiektua gauzatzeaz gain, gizartean dauden hainbat **erretizentzia** gainditzea izango da. Berria - Harian

Bitxi begitandu zitzaidan, are barregarri xelebre, halako milandar azentu bortitzez adieraziriko helvetiartasun hura; justifikagarri begitandu zitzaizkidan, aldiz, **erretizentzia** sarri haiek. Juan Garzia

---

erretoina *iz* erregeren oina.

Charles II.ak Oliver Cromwellen hezur zaharrak bere hilobitik aterarazi -orduen izango zuen aukera bere **erretoina** Cromwellen lepagainean jartzeko- eta gaizkileak urkatzen zituzten lekura eramateko agindu zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

erretoki 1 *iz* erraustegia.

Eritegia, hor gizon herresta batzuen lana zen artatu baino gehiago hiltzea; **erretokia**, azkenik, alimaleko bastiza bat, tximinia gora batekin, ixtant guziz gure etorkizunaren bidea nundik zen erakusteko gisan, ke zirimola baten puntan, negu karroinduan. Michel Oronoz

Buchenwald-eko herio zelaia bisitatu zuelarik **erretokia** nolakoa zen ezagutu zuen barnetik. Eneko Bidegain

Manikarnika **erretokira** heldu arte ez da gelditzen hiletako musikarien soinu neurtu, zabulari eta aspergarria. Gotzon Garate

Edo bai, baina gerla bururatu eta zenbait urtera baizik ez zuen baieztatu **erretoki** haien sekretu lazgarria. Eneko Bidegain

Orain nire zeregina, / zuhurkerian ibiltzea, / bihurtu baita ezina / **erretokiak** piztea. Xabier Olarra

Maiatz ondar hortan estrenatua izan da Miarritzen gorputz-**erretoki** berri bat, Angelu, Baiona eta Miarritzek manatua. Herria

Erretokian ez da mezarik emaiten, zonbait "funerarium"-etan bezala. Herria

2 erretzeko tokia.

Politika errealitateen artea da, eta ez opio-**erretokia**. Berria - Euskal Herria

---

erretolika 1 *iz* hizketa luze eta aspergarria.

Gelditu dira beraz korrikalariak, eta txintxo-aurpegia jarri ere bai **erretolika** entzuten duten bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Buruz dakizun **erretolika** kontatu diezu, anekdotak eta guzti, zenbat errematxe dituen, zein zailtasun izan ziren jasotzeko. Urtzi Urrutikoetxea

Sinn Feineko presidente Gerry Adamsek herenegun eskatu zuen bake prozesuaren inguruko **erretolika** bukatzeko eta epe laburrean autonomia itzultzeko. Berria - Euskal Herria

Hortxe dugu geure Errege gehien maite zuen **erretolika**: tronua eta iskiluak aldarearen zerbitzutan, eta bera Jainkoaren zerbitzari leial. Txillardegi

Haiek berehala bota zigutean **erretolika**, eriaren berme konstituzionalak eta istorio. Aingeru Epaltza

-**Erretolika** horrekin ez nauk hunkituko! Patxi Zubizarreta

Euskal Herriko talderen bat tartean denean epaileek entzun behar izaten duten **erretolika** izaten da hori. Berria - Kirola

Sermoi kutsuko **erretolika** horiek, dudarik gabe mundu tradizionalekoak direnak. Pako Aristi

Erretolika guztiak, sermoiak zertarako? Xabier Olarra

-Aizu, ez etorri niri **erretolika** horrekin. Fernando Rey

Txekhov ez da sermoi eta **erretoliken** zalea baina ezarian-ezarian haren kontakizunetan maitasuna, gorrotoa, handinahia, desengainua, egia, heriotzaÉ gizakia betidanik kezkatzen duten gai nagusi guztiak agertzen dira. Berria - Kultura

Iruditzen zitzaidan ero baten **erretolika** entzuten ari nintzela. Ander Irizar

Oraindik ez dut bukatu neure **erretolika**, maitea... Lopez de Arana

Beti **erretolika** bera! Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Alde egin beharra daukat, bestela Merton-ek **erretolika** ederra botako dit berriro... Lopez de Arana

Fiskal ergel hori **erretolika** luzean jardun zen, haurtzaroaren errespetua gora, heziketa demagogikoa behera... Karlos Zabala

Zeren ez baitzuen noski sinetsiko obispoaren **erretolika** eskerzale zuri hori guztia... Inazio Mujika Iraola

Erretolika apainduan luzatu beharrean, noiznahi ttaka juzku zorrotz eta bihurriantzak emateagatik izan dira errezeloz eta begiratu txarrez hartuak munduko tiporik onenak. Patziku Perurena

Ina txunditu hezakeen hire **erretolika** merkearekin, baina Mariasunek berehala hartu zian hire benetako neurria. abertzale demokratikoen **erretolika** hutsala, Euskadi ahotan beti. Jokin Muñoz

Katarren nagusia ez zen ulerbera agertu nire **erretolika** frantziskotarraren aurrean. Jon Alonso

Hotela erakutsi genien, eta gauzak nola zeuden zehatz-mehatz adierazi, baina **erretolika** alferrekorik gabe. Karlos Linazasoro

Ezin gelditu hala ere betiko **erretolika** beste behin errepikatu gabe: jarritako guztia jateko, kontuz ibiltzeko, etxera idazteko, ondo portatzeko... Xabier Mendiguren Elizegi

Lasai egoten zen errepublikarren, CIAren eta Rudolph Giuliani-ren aurkako **erretolika** suminei ekiten nienean. Oskar Arana

Parlamenti buffi (**Erretolika** irrigarriak) izenburuaren pean bildutako hiru liburu hauek 1971tik 1977ra bitartean idatzi nituen. ingurumenaren aldekoek garapenaren aldekoei egindako kritikek eragina izan dute nazioarteko erakunde ezagunenen **erretolika** burokratikoan. Berria - Gaiak

Espero izatekoa zen betiko **erretolika** militarista eta arraza arioaren dohainen goraipamena aurkitzea. Alberto Ladron Arana

Adierazpen asko ohiko **erretolikari** jarraituz eginak izan dira. Berria - Euskal Herria

Ez neukan norekin barrena askatu, Aloñari kontatzen banion egundoko **erretolika** botako baitzidan, esanez nirea zela erru guztia, eta benetan gaizki pasatzen ari zena gure auzo eta laguna. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartutean)

Txoriburuak bere makila ezkerreko besagainean jarri zuen, eta sekulako gogoeta eta adierazpen **erretolika** bat hasi zuen, ondrari eta zuhurtasunik gabe esaten diren hitzei buruz. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere erretolika (7); **betiko erretolika** (5); **buffi erretolika** (4); **buffi erretolika irrigarriak** (4); **erretolika entzuten** (3); **erretolika guztia** (6); **erretolika hori** (5); **erretolika hori guztia** (3); **erretolika horiek** (5); **erretolika hura** (3); **erretolika irrigarriak** (5); **erretolika luze** (3); **eta erretolika** (5); **parlamenti buffi erretolika** (4); **zuen erretolika** (3)

erretolikatsu *izond* erretolikaz betea.

Edo abade **erretolikatsua** ... Andoni Egaña

Oldar **erretolikatsu** bat espero nuen, baina natural bezain gisatsu aritu zait, entendimendu laburreko haur bati hitz egiten zaion eran: -Urrutiratu? Anjel Lertxundi

erretor *(orobat **erretorr**- g.er. eta **ertor** g.er.) iz ipar* erretorea.

Berriki hila zen bestalde Eñaut Arhanegoiti, etxeko hirugarren senidea, 36 urtez Arrokiagako **erretora** izan ondoren. Txillardegi

Ehorzketa kartsu eta hunkigarriak izan ditu Manex Hounçarren gure **erretorak** , zeru gainetik begira beza hemen penetan utzi dituen guzier. har dezagun uztailaren 16 a arte gure **erretora** falta izanen dela. Herria

Hazparneko **erretora** zen Martin Etxeberri eta Azkaratekoak Mixel Etxeberri. Xipri Arbelbide

Gaurko gure gomita, Baigorrin sortua, Irisarrin **erretora** , Emile Larre. Menane Oxandabaratz

Junes Casenave-Harigile, Altzaiko **erretorra** arras ezaguna da Amikuze aldean. Herria

Erretorak ez zaukun beti bisai ona egiten. Menane Oxandabaratz

Orano handiagoa izan zen Armagnague **erretoraren** iraüpena: 1871an sortürik, 48 urtez egon zen hebenko artzain (1910-1958). Herria

Joakin Jauregui, François Dardan parropiako **erretorak** kargu berri bat ukan du Apezpikua ganik. Herria

Ez nahiz nola-nahika jokatu egintza handi hortan, joan zen lehenik Arzeko jaun **Erretoraren** gana eta bere argiak galdatu ziozkan. Xipri Arbelbide

Eta denbora hartan Ahetzeko jaun **Erretora** zen Duhalde, geroztik Baionara erretor jin beharra zena. Xipri Arbelbide

Ohi den bezala jaun **erretorrak** benedikatu ditu toki berriak guzier bisitarazi aintzin. Herria

Bihotzez bat eginez **erretorrarekin** . Herria

Beharrik lau behar diren wiskean jokatzeko; eta hemen nola bertako **erretora** baizik ez baitago, neure izeba hilezkorra erreguka ari izan zait egun batzuk eskain diezazkiodan. Jon Muñoz

Buruilaren 25ean, Roger Idiart **erretoraren** eta elizako laguntzaile guzien inguruan, besta eder bat izan dugu, Aita Lucien Zaldua omenduz. Herria

1801-ean erretor sartu zen Beñat Suhare, Donibane Lohizunen sortua, Ziburuko bikari izana Saint-Esteben **erretoraren** denboran Pochelu parropiako **erretorraren** , Jules Lahargou herriko seme meza emailearen eta komunianten inguruan. Herria

Mendiboure Aiherrako **erretorak** Puyol-eri 1890.05.08, ANF F19/6025-79. Xipri Arbelbide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altzaiko erretor (3); **erretor berria** (14); **erretor berriak** (6); **erretor berriaren** (3); **erretor berriari** (6); **erretor egon** (11); **erretor egon zen** (4); **erretor egona** (4); **erretor eta** (3); **erretor gisa** (3); **erretor izan** (6); **erretor izendatua** (3); **erretor izendatua izan** (3); **erretor nausi** (4); **erretor ohia** (14); **erretor ohiari** (3); **erretor sartzea** (3); **erretor zena** (8); **erretor zenaren** (3); **erretor zenari** (3); **erretora eta** (11); **erretora zen** (3); **erretorak benedikatu** (3); **erretorak egin** (11); **erretorak emanik** (3); **erretorak erran** (5); **erretorak eta** (3); **erretorari eta** (4); **erretorik gabe** (3); **eta erretor** (6); **etcheverry erretorak** (4); **gure erretor** (15); **gure erretor berria** (4); **gure erretorak** (5); **gure erretoraren** (5); **gure jaun erretor** (3); **gure jaun erretora** (3); **gure jaun erretorak** (3); **gure jaun erretoraren** (4); **haristoy erretor** (7); **herriko erretor** (6); **herriko erretora** (3); **jaun erretor** (18); **jaun erretor ohia** (6); **jaun erretora** (42); **jaun erretora eta** (5); **jaun erretorak** (43); **jaun erretorak egin** (6); **jaun erretoraren** (10); **jaun erretorari** (11); **jaun erretorari eta** (3); **oraarreko erretor** (3); **piarres haristoy erretor** (7); **pierre etcheverry erretorak** (4); **sarako erretor** (3); **zen erretor** (3); **ziburuko erretor** (4); **ziburuko erretora** (4); **ziburun erretor** (3)

erretore **1** *iz* eliza bateko eta eskuarki parrokia bateko buru den apaiza. ik **errektore**.

Los Angeleseko Saint Basil parropian ari zen **erretore** , baita ere frantsesen omonier eta euskaldunen abade, hala behar zelarik. Herria

Hori gertatzen balitz, **erretore** bakoitzak beharko omen zuen fededunen sostengua eskatu. Elena Touyarou

Hurrengo igandean, elizara iritsi nintzenean harmonioa jotzera, aitorpenek on egiten zutela esan zidan don Hipolito **erretoreak** agurtu orduko, tarteko beste konturik gabe. Bernardo Atxaga

Erretoreak eman dit zigilua. Piarres Aintziart

Artean basilikako **erretore** zen On Inozentziok (g.b.) Euskadi Irratiari jakinarazi zionez, Teok ez zuen batere asmatu deia egin zuenean. Josetxo Azkona

Ikasteko zuen gaitasunaz oharturik, San Klemente parrokiako **erretoreak** , aita Mathieuk, ttipi-ttipitik gerizatu zuen eta Joanttok **erretorearekin** ikasi zuen leitzen eta kontatzen. Elena Touyarou

Errazagoa izanen zitzaion, Eiheralarreko **erretorearen** liburua orduan ezagutu balu. Aingeru Epaltza

Gerlaren berri bazekien Arnegiko **erretore** Donetx apezak, bere adineko anitz gizonek bezala, ezen 1914-1918koa egina zuen, hain bortitza izan zena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

- **Erretore** jaunak, hitz egin aurretik, alkate jaunaren iritzia zein den jakin nahi du. Koldo Biguri

Ez baitzen komeni herrian inork jakitea basozainak **erretore** jauna harrapatu zuela baimenik gabe ehizan. Koldo Biguri

Teillary gure jaun **erretorea** ez da hemen egun hauetan. Elena Touyarou

Gero Mugerreko **erretore** , gero Ezpeletakoa 1953tik 1972raino. Michel Oronoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gure **erretore** nagusia higatzen hasia, ez baita gazte haietarik: curriculum normal bat egina izan du, gaztaroan bikario, gero erakasle, gazte mugimenduetan omonier, katixima arduradun. Piarres Aintziart

Duela bi mende, erran nahi baita XIX.ean, Lacroix, Baionako apezpikuak, Arnegira izendatu zuen Errecart **erretore** berriari galdegin zion Ondarrolako lana ere egin zezan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Toki altuegia **erretore** apal batentzat. Koldo Biguri

Pentsatzen diat hi, eta Teillary **erretore** ohia dela asmatzen dudan hire ondoko herritarra, biziki okupatuak izan zaretela anartean, ezkontza, bataio, meza eta ehorzketekin... Elena Touyarou

Erretore zin egilea paradaz baliatu zen han zirenei gogorazteko elizako eginbideen konplitzeko obligazioa zutela. Elena Touyarou

Bihar San Juan de Ortega fama handiko herrira eta beregisako **erretore** ostalariak errezebituko nau. Piarres Aintziart

Zerbait horrek haragizko **erretorea** eta burmuinezko **erretorea** hartu eta ringera igotzera behartzen ditu. Koldo Biguri

3 (hitz elkartuetan)

Handik mende batera, Aurelianok, Aquileako **erretore** -laguntzaileak, jakin zuen Danubio ibai ondoan monotonoen (bestelako deituraz anulareak) sekta berri-berriak sinesten zuela historia zirkulu bat dela. Juan Garzia

Honengandik jakin zuen Teillary erretorea eta Bordaguibel **erretore** -laguna baserri batean bizi zirela, Larrun mendi hegian. Elena Touyarou

-Bakarrik hilabete zenbait daramatzat herri honetan -abisatu zuen parrokiako **erretore** -laguna zen Michel Bordaguibelek-. Elena Touyarou

Erretore -lagunaren galderak baretu zuen Joantto eta Domengaren arteko tirandura, berak batere nabaritzen ez zuena. Elena Touyarou

Erretore ordeetan bazela neska bat, BZ, nire aspaldiko ezaguna, eta harekin hitz egingo nuela. Joxerra Garzia

4 ***erretore etxe*** *(orobat **erretoretxe** g.er.)*

Imiruriko **Erretore etxeak** Arabako Bertsolari Gazteen Topaketak 2004 jasoko ditu asteburu honetan. Berria - Kultura

Emazte hura, Agatha, Domengarekin, eta beste emazte batzuekin, **erretore etxearen** garbiketaz, soinekoen zuriketaz eta jakien armairuan sekulan deusen eskasiarik ez zedin izan arduratzen zen fededun bat zen. Elena Touyarou

Aurten 800 urte bete dira Organyako Predikuak egin zirenetik; Predikuak katalanezko lehen testuak dira, Organyako **erretore etxean** aurkituak. Berria - Mundua

Herrirantz joan zen, lasai, atorra has, besorik gabeko barnekoa lotu gabe, bezperakoa bezain beroa izanen zela iduri zuen udako goiz hartaz gozatuz eta, **erretore etxean** sartu zen, guardak iratzartzen hasten zirenean hain zuzen. Elena Touyarou

Bere tristura ulertzen zuten, baina bilatzen zituen harriak nonahi egon zitezkeen, hala eliza bateko hormetan nola **erretore-etxe** baten sotoan edo ermita baten aldarean. Bernardo Atxaga

Erretore etxe ohiko jangelan egokitu zioten bulegoan. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

don hipolito erretoreak (3); **eiheralarreko erretore** (6); **erretore berri** (3); **erretore berria** (3); **erretore etxe** (3); **erretore etxean** (8); **erretore etxeko** (4); **erretore jaun** (6); **erretore jauna** (6); **erretore jaunak** (3); **erretore laguna** (7); **erretore lagunak** (4); **erretorea eta** (4); **erretorea ez** (3); **erretoreak eta** (4); **eta erretore** (5); **eta erretorearen** (5); **gure erretore** (4); **herriko erretorea** (3); **herriko erretoreak** (3); **hipolito erretoreak** (3); **imiruriko erretore** (3); **jaun erretoreak** (4); **sarako erretorea** (3); **sarako erretoreak** (4); **zuen erretore** (4); **zuen erretoreak** (3)

---

erretorego *iz* erretoretza. ik **erretorgo**.

Amaiak ez bazuen istiluetan parte hartu, eta garbi zegoen ez zuela parte hartu, orduan nola, zer irizpide eta zer froga erabili zuen **erretorego** taldeak Amaia inkulpatzeko? Joxerra Garzia

---

erretoreordetza *iz* erretoreordearen lanbidea eta kargua.

Limes bilduma sortu du Esteban Antxustegi irakasleak zuzendutako talde batek, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara **Erretoreordetzaren** babesean. Berria - Kultura

---

erretoretxe ik **errektore 4**.

---

erretoretza *iz* erretorearen lanbidea eta kargua; erretorearen bulegoa.

Frantziako Hezkuntzak eta **Erretoretzak** deliberatzen dute zein den eskoletan behar den liburu mota, edukiak eta bertze hainbat irizpide. Berria - Harian

Sarako **erretoretza** Agerrerendako izan zen. Aingeru Epaltza

Hamar urte lehenago, argudio bera aditu zuen, Sarako **erretoretza** auzitan ibili zenean. Aingeru Epaltza

Itsasondoko idazleak ere Itsasondotik kanpo bizi dira denak, bakarrik don Iñaki geratzen da, sortzez lazkaotarra, **erretoretzari** lotua eta bere aita zaharra zaintzeari emana. Xabier Mendiguren Elizegi

---

erretorgo *(orobat **erretorgu**) iz* erretoretza.

Lehuntzako herrian ereman du gero bere **erretorgoa**, beste hainbeste estimu eta lokarri merezitu diona: "horrekin ikasi dut errugbian... pilotan ere bai" eta bixtan zenez beste ainitzetan ere bai. Herria

Hargatik egoiten da oraino bere **erretorguan**. Xipri Arbelbide

Otoizten eta errekeritzen du utz dezan bere **erretorguatik** ateratzerat eta Misionest egitrat. Xipri Arbelbide

---

erretorgu ik **erretorgo**.

---

erretorika **1** *iz* ongi hitz egiteko edo idazteko antzea edo erregla multzoa.

Erretorikan dauka gakoa; hitzaren bidez, parean dugun pertsona hori konbentzitzeko edo limurtzeko garatzen dugun gaitasunean, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Jardun erretorikoak bere praktikotasuna galdu zuenean, **erretorika** eskolako jardun antzu bihurtu zenean, *elocutio*ak, formulazio dotore-apainen arteak neurriz gorako garapena izan zuen aurreko biak (inventio eta dispositio) oso-osorik janez. Txema Ramirez de la Piscina

Azken ezaugarri honek hurbilago ezartzen du bertsolaritza **erretorikatik** literaturatik baino. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Irakurle modernoari bitxi egingo zaio beharbada **erretorikaren** eta persuasioaren arteko identifikazio hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tamalez intentzio onei loturiko **erretorika** izaten da nagusi eta gauzak, hein batean, bere horretan jarraitzen dute edo are okerrago. Iñaki Heras

Irudiaren **erretorika** eginkizun dago. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erretorika klasikoaren kanonen egokitzapen bat da funtsean gure markoa, gaur egungo pragmatiken ekarpenez berritu eta osatua. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Produktibitatearen inguruan **erretorika** ofizialak dioena ezaguna da oso: [...]. Iñaki Heras

Erretorika berriek, pragmatikak, antropologiak, ahozkotasunaren teoriak eta, batez ere, bertsolariek berek albora utzi ezineko arrasto baliagarri mordo bat eskaini dizkigute azken urteotan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahozko **erretorika** inprobisatuak, idatzizkoarekin bat dituen baliabide testualez gainera, egoeraren araberako baliabideak ere baditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **erretoriko**.

[Axular] munduan izan diren **erretorika**-maisurik ederzaleenen pareko. Joan Mari Irigoien

Hiru **erretorika**-genero bereizten dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuaren eta bideratu behar den persuasio motaren araberakoak: judiziala, deliberatiboa eta epidiktikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Badakigu bertsolariak, bertso bat inprobisatzen ari denean, bost **erretorika**-kanonei dagozkien egiteko guztiak betetzen dituela, ohartuki zein ez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahozko erretorika (3); **beste erretorika** (3); **da erretorika** (6); **du erretorikaren** (3); **erretorika bat** (3); **erretorika ere** (3); **erretorika eta** (12); **erretorika genero** (5); **erretorika generoetan** (3); **erretorika huts** (3); **erretorika hutsa** (6); **erretorika klasikoak** (3); **erretorika klasikoan** (9); **erretorika klasikoaren** (3); **erretorika ofizialak** (3); **erretorikaren bost** (5); **erretorikaren genero** (3); **erretorikari buruzko** (3); **erretorikarik gabe** (4); **eta erretorika** (10); **eta erretorikan** (3); **eta erretorikaren** (9)

---

erretorikazale *izond* erretorikaren zalea.

Faltsu, izond. **Erretorikazalea**. Xabier Olarra

---

erretoriko 1 *izond* erretorikarena, erretorikari dagokiona.

Ez zen galdera, figura **erretorikoa** baizik; baina, hala ere, aho batez erantzun zioten denek: [...]. Jon Muñoz

Denboraren larriaz segundo gutxi batzuetan egin behar baitu bertsolariak bere lan **erretoriko** osoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esaldi zati batzuk, beroaldi **erretoriko** batzuk, bat-bateko arrengurak, zenbait esperantza duda-mudazko. Jon Alonso

Ez, ez erantzun, galdera **erretorikoei** erantzutea denbora alferrik galtzea da. Jon Alonso

Sasierudizioaren ostentazio **erretoriko** bat. Joxe Azurmendi

Erreflexu **erretoriko** ezkorrari aukera emango banio -udazkeneko haizetxo gaiztoa gidari-, Euskal Herrira kolore guztietako usoak etorriko direla esanez amaituko nuke, baina txuria, hainbestek espero duguna, ez dela inoiz helduko. Bernardo Atxaga

Dinamika **erretoriko** honek zulo beltz baten moduko babes elektorala eragin zuen azkenean. Berria - Mundua

Estrategia **erretorikoari** dagokionez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Segmentu bakoitzari funtzio **erretoriko** jakin bat egokituz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bat-bateko bertsolaritzan, osotasun **erretorikoaren** arabera eta haren zerbitzuan jokatzen du beti poetikak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hainbat segmentu **erretoriko** bereiz daitezke Egañaren bertsoan: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsolari onaren ofizioaren adierazlea da, hain zuzen ere, erritmoaren menderatze **erretorikoa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beharrezkoa da lehiakortasunaren kimera **erretoriko** hori kritikatzea. Iñaki Heras

Ez ote gara etsaiaren tranpa **erretorikoan** erori? Ez al gabiltza konplexuz beterik? Berria - Euskal Herria

Harreman diskurtsiboak, ikusten denez, ez dira diskurtsoaren barrukoak; ez dituzte elkarren artean lotzen kontzeptuak eta hitzak; ez dute ezartzen esaldi edo proposizioen artean arkitektura deduktibo edo **erretoriko** bat. Xabier Arregi

Deitura hori, haatik, lengoaiaren erabilera **erretoriko** berezi batean oinarriturik dago. Piarres Xarriton

Estatu horrek ez daki zer den askotarikotasuna eta praktikan ez du aniztasuna onartzen [...], nahiz eta maila **erretorikoan** baietz adierazi eta bere berariazko ikuspegi politikotik interpretatzeko ahalegina egin. Berria - Euskal Herria

Garbi utz dezagun ez dela porrotaren hori jarrera **erretoriko** hutsa, zeren bere bizitza letrazkoa beste bizitza menturazko bat ez bizi izatearen truke bizi izan duela sentitzen baitu Borgesek. Juan Garzia

Susmatu ere egin al huen lipar batez patu **erretoriko** hau izaterik, noiz eta, Saint-Lazare geltokiaren aurrean, belarri suharrez entzuten hituenean hire soingainekoaren goreneko botoia etorri-iturri zitzaion pertsonaiaren joskin-aholkuak? Xabier Olarra

Literatura **erretorikoan**, eta literaturan beste gabe, konparazioa osagairik maiteenetakoa izan da beti. galdera itxuraz **erretoriko** hori guztiz bestela eta gogoz bestera ulertu behar dela esango nuke. Xabier Amuriza

2 (adizlagun gisa)

Ohartu al zarete inoiz?, galdetu du Josebak, **erretoriko**, Jaen aldean olibadiak lerro zuzen-zuzenetan antolatuta daude. Iban Zaldua

3 (hitz elkartuetan)

Demagun, esaterako, genero judiziala, "iraganeko kontuez arduratzen den genero **erretoriko**-pertsuasiboa". Joxerra Garzia

Bertsoari kalitate maila bere arrazoibidearen indarrak edo bere balio poetiko-**erretorikoek** emango diote. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 (izen gisa)

Erretoriko xuriak, ezin du eraman ekintzaren oihartzun zehatz horrenik, gogorregia iruditzen zaio. Patziku Perurena

Kalte gutxien egingo lukeena **erretoriko** eta berriketari sail bat bihurtzea izango litzateke; txarrena, beste Mozolo eta Sagu talde bat izatea. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baliabide erretoriko (6); **baliabide poetiko erretoriko** (6); **baliabide poetiko erretorikoak** (3); **batasun erretoriko** (3); **erabilera erretoriko** (3); **erretoriko bat** (7); **erretoriko edo** (3); **erretoriko hutsa** (7); **erretorikoa da** (5); **erretorikoa zen** (3); **erretorikoaren barnean** (3); **galdera erretorikoa** (8); **genero erretoriko** (3); **lan erretoriko** (3); **osotasun erretorikoaren** (5); **poetiko erretoriko** (7); **poetiko erretorikoak** (3)

---

erretorikoki *adlag* modu erretorikoan.

Lehen bi puntuak, hori bai, Uztapideren bidetik osatu ditu Amurizak, egoeraren elementuak **erretorikoki** baliatuz: "gai hau hemen ez nuen espero". J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

"Zer oroigarri izan dezaket neure buruaz?", galdetu zion **erretorikoki** bere buruari. Karlos Linazasoro

Manifestaren kasua aipatu zuen artistak, Pasaiara zabaltzearekin, kultur egitasmo baten aitzakian nolako diru-mugimendua egon ote den galdetu zuten, **erretorikoki**. Berria - Kultura

---

erretorizismo *iz* erretorikarako joera.

1905eko *Vida de Don Quijote y Sancho*-n, bizkaitarristen kritiko zorrotza, ez dakit paroxismo edo **erretorizismo** superbaroko, inoren lotsagarri samarreraino heltzen da bera. Joxe Azurmendi

---

erretorromaniera *iz* Erdiko Alpeetan mintzatzen diren latin jatorriko hizkera erromanikoen multzoaren izena.

La Quotidiana: Suitza (**erretorromaniera**). Berria - Euskal Herria

---

erretorta *iz* laboratorioko ontzia, kono formakoa, lepoa luzea eta beherantz kurbatua duena.

Ez daki alanbikez eta **erretortaz**. Berria - Kultura

---

erretraktu *iz* norbaiti saldu zaion zerbait prezio berean berreskuratzeko eskubidea.

Alferrik da esatea odolezko **erretraktua** -ahaideen eskubide zaharrean oinarritua, gure jurisprudentzia frantziar zaharraren misterio bat da eta hemen ez dut garatzeko astirik- ezinezkoa zela feudoei zegokienez, betikotu ez ziren bitartean. Iñaki Iñurrieta

---

erretransmisio *iz* erretransmititzea.

Ubanbe eta Opinen ohizko hitz zaharren artean, **erretransmisioan** ikasitakoak azaltzen ziren: *golpe bajo, clinch, gancho de izquierda, directo,* Cassius Clay, Sonny Liston. Bernardo Atxaga

---

erretransmititu, erretransmiti(tu), erretransmititzen du *ad* irratiz edo telebistaz errezibitu den programez mintzatuz, transmititu.

Euskal Telebistak zuzenean **erretransmititu** zuen atzoko partida. Berria - Kirola

Futbol partida bat jartzen zuen telebistan, eta hari ahotsa kendurik partida bera **erretransmititzen** ari zen irratia pizten zuen. Pako Aristi

"Gogor eman dio nafarrak ezkerrez area barruan..." identifikatu du Athleticen partidua **erretransmititzen** ari den esatariak Ismael Urzaiz baloia jotzen ikusi eta batera. Iñigo Aranbarri

---

erretratatu *(58 agerraldi, 19 liburu eta 25 artikulutan; ETCn 1.143 agerraldi)*, erretrata(tu), erretratatzen **1** du *ad* erretratua egin.

Jitka Hanzlova argazkilari txekiarrak Brixtongo emakumeak **erretratatu** ditu. Berria - Kultura

Beste argazki bilduman Gipuzkoako udaltzainak **erretratatu** ditu. Berria - Kultura

Arabako eliza guztiak **erretratatu** zituen. Berria - Kultura

Igogailua solairu guztietan gelditzen zen, eta ate irikietatik andregai bat ikusi nuen eztei soinekoa jantzita **erretratatzen** ari zirena. Koro Navarro

Lehen albiste eta komentarioak eta zertxobait gehiago bete ditu Donostian 1.200 lagun biluzik **erretratatu** izanak. Berria - Euskal Herria

EZ dut komunitatea **erretratatzen**, soilik pertsonaiaren unibertsoa enfokatzean gerturatu naiz raramuriengana. Berria - Kultura

Itsasontzi bat irudikatzen duen marrazki baten erdiko zulotik burua erakutsi behar zenuen, argazkilariak zu barku bateko kapitainarena eginez **erretratatzeko**. Anjel Lertxundi

Zenbaitetan, atzerritarrak herrira etorri eta fotografiak egiten zizkigutenean, sortzen zitzaigun dudaren bat, zergatik begiratzen ote zuten zeharka, zergatik horrenbeste komedia eta **erretratatzeko** makina. Bernardo Atxaga

Argazki berrien artean, zuri-beltzean **erretratatutako** emakume baten begiradak harrapatu ninduen. Iban Zaldua

Errege-erreginak, printze-printzesak, infante-infantak bere dotoreziaren dotorezian **erretrataturik** ikusi nituenean. Bernardo Atxaga

Distantzia aparteko horrek galaxiak tartean, Esne-bidea, Eguzki sistema dagoen galaxia sortzen ari ziren garaia **erretratatzeko** aukera eman du. Berria - Gaiak

2 irudikatu, azaldu.

Maisuki **erretratatzen** ditu Kaplanek izugarrizko hazkundea izan duten hiriak eta inperio sendoa. Iñaki Heras

Gizarteak baztertuak **erretratatu** eta munduan zabaltzen hasi zen irudi horiek. Berria - Kultura

Bizitzaren zabala pintzelkada fin eta doiez **erretratatu** du, giza harremanen inguruan duen ezagutza sakona agerian utziz. Berria - Kultura

Parkerrek bere garaiko pentsamoldeak **erretratatzeko** ahalegin paregabea egiten du. Berria - Kultura

Horra hor gure gizartea ezin hobeto **erretratatua**: zientzia, bai, baina erlijioaren eta mitoaren zerbitzuan. Joxerra Garzia

Madrilgo giroa islatu nahi eta bere ezintasuna **erretratatu** du hor kazetariak. Edorta Jimenez

Fernando de Rojas-ek hain ondo **erretrataturiko** *hechicera* eta antzeko pertsonaiak. Bernardo Atxaga

Sollubeko batailakoak eta Bilboko zibilen egoerak **erretratatu** zituen. Edorta Jimenez

Donostiarren espiritu eta izaera hori **erretratatzen** du aldi berean Juan Bizente Etxegaray bertso-jartzaileak. Askoren artean

Ordura arte Dickens, Hugo eta beste batzuek umea aingeru eta biktima gisa zuten **erretratatua**. Itziar Otegi

Gurekiko, hots, bere adiskideekiko harremanek kutsu ironiko bat izaten zuten beti, eta ironia haren bitartez **erretratatzen** gintuen eta iruzkinak egiten zizkigun. Fernando Rey

3 (era burutua izenondo gisa)

Elkar azkenekoz ikusten dute erretratugileak eta **erretratatuak**. Edorta Jimenez

Moilan, Indalexio dago, bere **erretratatu** kuttunena, ezeren beldur izateko zaharregia honezkero. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erretratatu du (3); **erretratatu zituen** (5); **erretratatu zuen** (5); **erretratatzen du** (4); **erretratatzen du** (4)

---

erretratatzaile *iz* argazkiak egiten duen pertsona. ik **argazkilari**.

"Perpignan-Txiki" zen **erretratatzaile** haietan famatuena, nik ez dakit ba noiz eta nola Perpignan horretan bizi izandakoa zelako-edo hala deitzen zutena. Pako Aristi

---

erretratatze *iz* erretratua egitea; irudikatzea.

Ama beti egon zen **erretratatzearen** aurka. Juan Garzia

---

erretratista **1** *iz* argazkiak egiten duen pertsona. ik **argazkilari**.

Eguraldi onarekin, eta bai **erretratista** eta baita ere argazkian irten beharrekoa geldi-geldirik egonez gero, argazkiak seguru ateratzen zituen. Pako Aristi

Montmartren ere bazeudek **erretratistak**! Harkaitz Cano

2 (izenondo gisa)

Argazkilaria gai historikoetatik haratago doa eta estetika **erretratista** du ardatz, gai xumeak hartuta». Berria - Kultura

---

erretrato ik **erretratu**.

---

erretratu *(ETCn 6.911 agerraldi; orobat **erretrato** ETCn 41 agerraldi)* **1** *iz* egiazko pertsona bat, eta eskuarki haren aurpegia, irudikatzen duen margolan edo marrazkia; margolan hori teknika gisa. ik **potret**.

Natura hilak, **erretratuak** eta paisaiak egin zituen Etxebarriak. Berria - Kultura

San Ignazioren **erretratuaren** azpian biluzi bat dago, adibidez. Berria - Kultura

Modernitateak gehien baloratu zizkion biluziek, **erretratuek** eta marrazkiek, alegia, interesgarriak izaten jarraitzen dutela argi froga daiteke Louvreko erakusketan. Berria - Kultura

Poeta greziarrari ez ezik, bere buruari ere eginiko **erretratua** da, Kitaj bera baita eskailerak jaisten ari den gizon bizarduna. Berria - Kultura

Umetxo baten **erretratua** ikusi dut mahai gainean. Joseba Sarrionandia

Jenerala bere amaren **erretratura** hurbildu zen. Xabier Olarra

Wattsen **erretratuetan** kalitate lirikoa nabarmendu dute haren zaleek. Berria - Kultura

Pintore vienatarraren **erretratuko** gazteak burua pixka bat okertzen zuen, eta begirada samur eta serioa ezerezean galtzen zitzaion, "zergatik" galdezka ari bailitzan.

Xabier Olarra

Urmargoen bidez koloreztatutako hamar bat **erretratu**. Berria - Kultura

"Afaritan ginelarik -zioen Uzelayk- bera eta Duñabeitiaren **erretratua** margotu nezan eskatu zidan Hemingwayk. Edorta Jimenez

Euskarri akrilikoetan egindako neurri handiko koadroekin batera, bideo-lanak eta **erretratu** digitalak ikusteko aukera ere eskainiko du Arrietaren Pekingo erakusketak. Berria - Kultura

Mendebaldeko artisten eraginez, **erretratua** lantzeari ekin zioten artista errusiarrek; Dimitri Levitski margolariak eta Fiodor Shubin eskultoreak, adibidez. Berria - Kultura

2 egiazko pertsona bat, eta eskuarki haren aurpegia, irudikatzen duen argazkia.

Erretratuak dira argazkilari honen lan sonatuenak, baina aulkiekin egindako sorta gustatu zitzaigun bereziki. Berria - Kultura

Ez da eroso sentitzen argazkilariak **erretratuak** egiten dizkion bitartean. Berria - Kultura

Erretratua atera zuen, eta badaezpadan beste bat aterako zuela esan zigunean betirako irautea mereziko zuen figura ematen ahalegindu ginen berriro. Joseba Sarrionandia

3 irud/hed

Euskal Herriaz eta euskaldunez aspaldiko partez irakurri dudan **erretraturik** borobilenetako bat, perla distiratsu bat. Berria - Kultura

Bortitza eta probokatzailea idatzietan, deprabazio garaikidearen **erretratua** egiten duela diote kritikoek. Berria - Kultura

Jende on, eder eta talentudunaren **erretratu** bat da. Berria - Kultura

Baina Morettik ere badaki bere burua ezkutatu eta, hala ere, bere inguruaren **erretratu** gordina egiten, *Il caimano* azkeneko filmean erakutsi bezala. Berria - Kultura

Indalexioren ekanduen **erretratuan** ere ez zuen huts handirik egin Kruzalegik. Edorta Jimenez

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Amamak bere **erretratu** zahar hori Goioren esku ahurrean ipini, Goioren eskua aihen moduko atzamar bigunez sakatu [...], eta Goiori negu guztiek baino hotzikara handiagoa eman zioten hitzok esan zizkion: [...]. Joseba Sarrionandia

Erretratu aldakorrak eta satelite bidezko irudiak. Berria - Kultura

Erretratu arkitektonikoak. Berria - Kultura

Ondoren, paisaia eta **erretratu** pertsonalagoak landu zituen: mendiak, itsasoa eta harea azaltzen dira paisaietan, eta errealitatea eta errealitaterik eza nahasten ditu. Berria - Kultura

AEBetako gizartearen **erretratu** zuzen gisa sortuak dira Hopperen lanak, baina azken funtsean Mendebaldeko gizartearen **erretratu** zuzentzat hartzeko modukoak. Berria - Kultura

Capote-ren bertsio bikoiztuak ikusten uzten duenaren arabera, Seymourrek idazlearen **erretratu** zaratatsua egiten du, behartua, eta, horregatik, zaila da izandako arrakasta ulertzen. Berria - Kultura

Spencer Tunick nazioarteko argazkigintzan ezaguna da leku publikoetan **erretratu** masiboak ateratzen dituelako, eta horiek egiteko, gizon eta emakumeak biluzten dituelako. Berria - Kultura

Paretak lauki urreztatuekiko antzinako **erretratuz** beteak zeuden. Xabier Olarra

Ortiz Alfauren Kixoteren **erretratu** espresionista. Berria - Kultura

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goantea erantzi eta atzamar mamiak **erretratu** makinaren parte metalikoan itsatsiko zaizkizu. Joseba Sarrionandia

Margolariaren ohiko **erretratu**-estiloan atondua, gizon handi biak elkarren alboan eta aurrera begira dagoz. Edorta Jimenez

Erretratu-zulotik sartu eta egongela zeharkatu ondoren, neskak eta mutilak banatu egin ziren, nor bere eskaileretara. Iñaki Mendiguren

Giro horretan, zirikada eta eztenkaden artean, Ernest Hemingwayk Lillian Rossi aholku egin gura dio, hari lana agintzen zion The New Yorker aldizkarirako **erretratu**-gai liratekeen pertsonaien zerrenda osatzen lagunduz. Edorta Jimenez

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irudiak hondo ilunetatik eztiki irteten dira inor beldurtu edo harritu gabe, gai erlijiosoak izan (Kristoren bizitzakoak asko eta Itun Zaharrekoak beste asko) edo gai zibilak izan, De Nachtwacht talde **erretratuan** bezala. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren erretratua (4); **amaren erretratua** (5); **artistakume baten erretratuan** (3); **baten erretratu** (5); **baten erretratua** (21); **baten erretratua egin** (3); **baten erretratuan** (3); **beste erretratu** (5); **edo erretratu** (3); **egin zion erretratua** (3); **eginiko erretratua** (3); **eginiko erretratuak** (3); **emakume baten erretratua** (3); **erretratu bat** (29); **erretratu batean** (5); **erretratu batzuk** (3); **erretratu handi** (4); **erretratu handia** (3); **erretratu hau** (3); **erretratu hori** (8); **erretratu hura** (6); **erretratu obala** (3); **erretratu zahar** (3); **erretratu zehatz** (3); **erretratu zuloa** (4); **erretratu zuloan** (3); **erretratu zuloan zehar** (3); **erretratu zulora** (7); **erretratu zulora iritsi** (3); **erretratu zulotik** (13); **erretratu zulotik irten** (3); **erretratua atera** (6); **erretratua da** (3); **erretratua egin** (13); **erretratua egin du** (3); **erretratua egin zuen** (4); **erretratua egitea** (3); **erretratua egiteko** (3); **erretratua egiten** (5); **erretratua ere** (6); **erretratua eta** (5); **erretratua ikusi** (6); **erretratua zegoen** (4); **erretratuak dira** (6); **erretratuak egin** (3); **erretratuak egitea** (3); **erretratuak egiteko** (4); **erretratuak ere** (7); **erretratuak eta** (10); **erretratuan ere** (4); **erretratuaren azpian** (4); **erretratuari begira** (5); **eta erretratu** (16); **eta erretratu zulotik** (5); **eta erretratua** (4); **eta erretratuak** (6); **gizartearen erretratu** (5); **gizenaren erretratua** (3); **hainbat erretratu** (3); **haren erretratua** (4); **zion erretratua** (3)

---

erretratugile *(orobat **erretratu egile**) iz* erretratuak egiten dituen pertsona.

Hainbat erakusketa zabaldu dituzte egun hauetan Ingalaterran George Frederic Watts **erretratugilearen** omenez (1817-1904), haren heriotzaren mendeurrenean. Berria - Kultura

Elkar azkenekoz ikusten dute **erretratugileak** eta erretratatuak. Edorta Jimenez

Erretratugile bikaina izan zen Ignacio Zuloaga; hainbat idazle eta toreatzaile ezagun betikotu zituen pinturan. Berria - Kultura

Erretratugile aparta, modaren munduko argazkilari onenetakotzat dute aditu askok eta askok, baina arte liburu asko ere argitaratu zituen. Berria - Kultura

XX. mendeko **erretratugilerik** handienetakoa: Richard Avedon. Berria - Kultura

Nadar bezalako **erretratugile** zogi bat izanda ere, ez du inoiz ahazten bere modeloa jarrera adierazgarri batean jartzea, dekoraturen batean kokatzea, hala behar izanez gero Raimundo Madrazo **erretratu egile** ezaguna da. Josu Zabaleta

---

erretratutxo *iz adkor* erretratu xumea.

Amamak bere erretratu zahar hori Goioren esku ahurrean ipini, Goioren eskua aihen moduko atzamar bigunez sakatu, **erretratutxoa** mutikoaren esku zarratuaren barruan uzteko, eta Goiori negu guztiek baino hotzikara handiagoa eman zioten hitzok esan zizkion: [...]. Joseba Sarrionandia

---

erretreta **1** *iz* adin jakin batera iritsiz, lanbidea eta kidekoak uztea; lanbidea uztean jasoten den soldata modukoa. ik **erretiro**.

Baduzularik ainitz gauza egiteko, ez da zaila **erretreta**. Menane Oxandabaratz

Erretretari buruz, erretiratu ziren beren alabaren etxerat. Herria

Kolko Mitxoletak **erretreta** hartu eta hor nonbaiteko bazter galdu batean erretiratuko zela erabaki zuen. Jon Alonso

Ez zuen berrogeita hiru urteetan **erretreta** hartzen ahalko. Itxaro Borda

Jada **erretretako** adinera helduak zirela. Herria

Adinduenek, aitzin-**erretretaz** gozatuz, **erretreta** berrogeita hamahiru urtetan har zezaketen. Itxaro Borda

Pantxo Michelena, Kanboko eskola publikoko klase elebidunetako erakasleak bakantza luzeak ukanen ditu aldi huntan, **erretretan** sartzen baita. Herria

Erretretaren eta Seguritate Sozialaren aldaketa sakonen ondorioz. Itxaro Borda

Erakasle ainitz joaiten dira **erretretara**. Herria

Hogeita hamazazpi urte eta erdi lanean ari izanik, ederki merezitako **erretretara** helduak ziren. Itxaro Borda

Lan gabezia alde batetik, gero eta haur gutiago bestetik, nork eta nola pagatuko dira **erretretak** hemendik eta zenbait urteren buruan. Herria

Bana beste mila euroko **erretreta** hunkitzen dute gaur egun departamenduan adintsuek. Herria

Ortzegun gaueko nire **erretreta** destenorekoak alderdi abantailos bat bazuen, bederen. Aingeru Epaltza

Erretreta luze eta osasuntsu bat. Herria

Erretreta on, Maialen. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Arbelbidek izan zuen etxe hori apezen pausa leku eta apez xaharren **erretreta**-etxe egiteko ideia, serora kongregazio baten gain emanez etxearen erostea eta ideia gauzatzea. Xipri Arbelbide

Zorionak eta ainitz urtez oraino, beren **erretreta** denbora goza dezatela ahal bezen goxoki. Herria

Aitak, aitzin-**erretreta** erdiets zezan, legearen arabera, ondokoak lurrak emendatu behar dituela eta, beren 24 hektarearen gainera, alokatzen zituen 4 hektarea bere izenean pasaraziak zituen. Daniel Landart

Ondorioz, **erretreta** kutxa horien gastuak emendatuz doatzi, diru-sartzeak aldiz xuhurtuz! Herria

Ez zuela merezi, bost urte gehiago edo bost urte gutxiago lan eginda ere berdin-berdin izango nuela **erretreta**-sari kaxkarra. Iban Zaldua

3 erretiratzea, eskuarki gudarostea.

Israelgo Defentsa ministro Shaul Mofazek atzo esan zuenez, Armadak badu plan bat Gazako **erretreta** gauzatzeko. Berria - Mundua

«Gaza lehenbizi da, ez Gaza azkenik», esan zuen Solanak, **erretretak** gero Zisjordanian segitu behar duela nabarmenduta. Berria - Mundua

Espainiako presidente ohi Jose Maria Aznarrek AEBetakoari, George Bushi, hots egin zion, tropa espainiarren **erretretaz** «damua» agertzeko. Berria - Mundua

Espainiaren **erretreta** modu koordinatuan eta koalizioko beste indarrak arriskuan ez jartzeko gisan egiteko eskatu zion Bushek Zapaterori. Berria - Mundua

Oroi naiz Ain Sefra hirian nintzela **erretreta** espirituala egiten, beste apezgai batzuekin izigarriko segada erreusitu zutelarik gure soldadoek Tamedda mendiaren kaskoan. Piarres Aintziart

Kontseilu galdegiten ibili zen, historia liburuak irakurtu zituen, **erretreta** bat egin zuen Belokeko monasterioan. Michel Oronoz

Nikaragua izan zen **erretreta** deia jo zuen lehen herrialdea, urtarrilaren hasieran. Berria - Mundua

4 kasernetan eta, gauean biltzeko deialdia.

Diana eta **erretreta** joaldietan Donostiako hiri barrua kuarteletako 'ra-ta-plan' hotsez betetzen zuen haren imitaziozko harmonia (--?), alegia. Askoren artean

Gero Gavardi, zeina hatz puntez **erretreta** joka ari baitzen marmolezko mahaiaren gainean, danbor baten gainean bezala; elkarrizketari berriz ekiteko gonbidatzen zituen irribarre eginez. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere erretreta (11); **beren erretreta** (6); **da erretreta** (3); **du bere erretreta** (3); **du erretreta** (4); **duen erretreta** (3); **erretreta eta** (8); **erretreta etxe** (5); **erretreta etxearen** (3); **erretreta hartu** (34); **erretreta hartu arte** (6); **erretreta hartu berria** (4); **erretreta hartu du** (6); **erretreta hartu eta** (3); **erretreta hartua** (4); **erretreta hartuko** (3); **erretreta hartuz** (3); **erretreta hartzean** (3); **erretreta hartzearekin** (6); **erretreta hartzen** (9); **erretreta horien** (5); **erretreta luze** (4); **erretreta luze eta** (4); **erretreta on** (8); **erretretan dago** (3); **erretretan diren** (3); **erretretan jarri** (3); **erretretan sartu** (9); **erretretan sartu arte** (3); **erretretan sartzen** (5); **erretretarat helduak** (3); **erretretarat joan** (3); **erretretarat joanen** (3); **erretretaren hartzeko** (4); **erretreten auzi** (3); **erretreten erreforma** (5); **erretreten gainetik** (4); **erretreteri buruz** (10); **eta erretreta** (23); **eta erretretaren** (3); **gazako erretreta** (8); **orai erretretan** (3); **orain erretretan** (6); **zuen erretreta** (5)

---

erretretadun *iz* erretreta kobratzen duen pertsona.

Txori, isilena, **erretretaduna** da jadanik; etxola bat du hiritik kilometro batzuetara, eta baratz txiki bat, eta hantxe ematen ditu egunak, letxuga, baina eta tomateen artean. Iban Zaldua

Zer galdu zaio bera bezalako **erretretadun** bati han? Iban Zaldua

Txori, isilena, **erretretaduna** da jadanik; etxola bat du hiritik kilometro batzuetara, eta baratz txiki bat, eta hantxe ematen ditu egunak, letxuga, baina eta tomateen artean. Iban Zaldua

Gero eta ezberdintasun gehiago, alde batetik **erretretadun** pobre gehiago, eta beren zahar arranda kapitalizatze pribatuen bitartez osa dezaketen **erretretadunak** bestetik. Herria

---

erretretaño *iz adkor* erretreta xumea.

Karia hortarat, **erretretaño** bat larunbat huntan eginen dute Beskoitzen, 10 orenetarik goiti, meza batekin, Belokeko komentuan bururatuko dena. Herria

Orain, ofizio eta familiako karguetarik laxatuak, **erretretaño** hori ere bere hainean heldu, ez dutea, zinez, hogeita-hameka eta esku! Herria

---

erretretaratu, erretretara(tu), erretretaratzen da *ad* erretretera joan, erretreta hartu.

Gizona Parisen geratu zen, langile [...] baina, **erretretaratzean**, Enez Eussako norabidea hartu zuen. Itxaro Borda

---

erretroaktibo *iz* jada gertatu den zerbaitez aritzen dena.

Damutuarengan ez zagok damurik, pertsonalitate berri baten eraketa baizik; izaera **erretroaktiboa** duen eraketa, gainera. Jon Alonso

---

erretrobiral *izond* erretrobirusei dagokiena.

Gaitzean aditua zèn jendeak ez baitzuen uste, artean, epe laburrean erremedio eraginkorrik asma zitekeenik, tratamendu **erretrobirala** handik urte eta erdira ezarri bazen ere. Joan Mari Irigoien

---

erretrobirus *(ETCn **290** agerraldi; orobat **erretro-birus** ETCn **11** agerraldi) iz* azido erribonukleikoa duen birusa, enzima bat duena, zelula bizi batean sartzean bere material genetikoa azido desoxirribonukleiko bihurtzen duena.

Erretrobirus bat erabili zuten Alemaniako adituek gene osasuntsua erien organismoan barna bideratzeko. Berria - Gaiak

Erretrobirusen kontrako sendagaiek odoleko birus maila jaitsi eta aldi berean, defentsak sendotzen dituzte. Berria - Gaiak

Erretrobirusen kontrako botikek bigarren mailako zenbait ondorio dituzte gaixoengan. Berria - Euskal Herria

Bizkaian eta Gipuzkoan **erretrobirusen** tratamendua jasotzen ari diren 4.000 lagunetatik %15 inguruk ebakuntza egiteko baldintzak betetzen dituzte. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erretrobirusen aurkako (4); erretrobirusen kontrako (6)

---

erretrobisore *izond* **1** ispiluez mintzatuz, begiratzen ari denaren atzean gertatzen dena ikustea ahalbidetzen duena.

Jean Claudek ez du erantzuten, ispilu **erretrobisorea** okertu eta gorbataren korapiloa bere lekuan zuzen jartzen du. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izen gisa)

"Costa Vasca No Nuclear" eta "Euskal Herrian Euskaraz" ia irakurtezinen ondoan "Euskal Herria Askatu" zioten bi pegatina handi-distiratsu itsatsi nizkion; horretaz gain, zer esanik ez, **erretrobisorea** kendu eta atzeko eskuineko intermitentea ostikada batez izorratu nuen. Iban Zaldua

Gidariak **erretrobisoretik** ikusi zuen guztia, eta buruari eragin zion, "Jainkoarren" esan nahi balu bezala, edo "Hamaika ikusteko" esan nahi balu bezala. Unai Elorriaga

---

erretrogenesi *iz* Alzheimerren gaitza dutenen ezagutza inboluzioa.

Barry Reisberg adituak Alzheimerren gaitza **erretrogenesiarekin** lotzen du, galeraren bidez berriz ere umetzearekin; ikusmina piztu zuen atzo Altsasun. Berria - Gaiak

Erretrogenesia deitzen zaio kontzeptu horri, eta, Reisenbergek atzo esan zuenez, ezinbestekoa da gaitza behar bezala ulertzeko. Berria - Gaiak

---

erretrospektibo *izond* atzera begirakoa.

Ez nuen jakingo une horretan elkar non ezagutuko zuten esaten, baina jeloskortasun **erretrospektiboak** ematen duen argitasunarekin ikusi nuen idazlea, ni neu inoiz ibili nintzen bezalaxe, Monikaren etxe atariko espaloiak iragaitzez bezala baina goiko leihoetako argiei erreparatuz behin eta berriro euripean zeharkatzen. Joxean Agirre

---

erretrospekzio *iz* atzera begiratzea.

Nolabaiteko susmoz hartu nuen liburua, ezinbestean: garai hartan, ustea zebilen autistaren adimena ez zela gai ez bere burua ez beste inor ulertzeko, eta, horrenbestez, ez introspekzio ez **erretrospekziorako** ere. Xabier Olarra

Uste dut arrain mota honek giza jakituria oso ongi irudikatu eta sinbolizatu duela; izan ere, izkirak, atzerantz bakarrik mugitzen denez, **erretrospekzioa** bakarrik izan dezakeen bezala, igarotako arriskuak baizik ez ikusteko ahalmena alegia, horrela gizonari bere jakituriak ez dio bide ematen bere ibilbidea mugatzen duten erokeriak saihesteko, baizik gero haietaz jabetzeko. Xabier Olarra

---

erretrozeso *iz* atzerakoa, atzerakada.

Itsaspekoak ez zuen tirabira handirik egin, **erretrozeso** gutikoa zen kanoia. Koldo Izagirre

---

errets ik **erraz**.

---

erretserba ik **erreserba**.

---

erretx ik **erraz**.

---

erretxaze *iz* futbolean, baioa urrutzea.

Erretxazea, pase luzea, eta Ballack, Worns eta Kuranyiren arteko jokaldia, ezerezean bukatzeko. Berria - Kirola

---

erretxazo *iz* baztertzea, arbuiatzea, arbuioa.

Mariak argazkiari dioen **erretxazoa** da jende askok bere bizitza epaitzerakoan sentitzen duen sentimena. Pako Aristi

Hetero batek inoiz sofrituko ez duena, ez baita bere afektu eskaerari emandako **erretxazoa**, bere afektu aukerari baizik, maitatzen hasten ere ez zaio uzten homosexualari eta. Pako Aristi

---

erretxin *(orobat **erretxina** g.er.)* **1** *izond* edozein huskeriagatik haserretzeko edo marmarka hasteko joera duena. ik **ipurterre; zazpiki**.

Bere etxe aurreko eskaileretan ume txiki biak besoekin inguratzen zituelarik ikustea aski zen ni bezalako agure **erretxin** baten bihotzari zirrara eragiteko. Oskar Arana

Ihesi zebiltzan abertzaleak galtzeko asmotan kuartelillora joateko prest zegoen fraide **erretxina**. Xabier Mendiguren Elizegi

Filch Hogwartseko etxezaina zen, porrot egindako azti **erretxin** bat. Iñaki Mendiguren

Batere edukazio eta nobleza gabeko txori lotsagabe, **erretxin**, negarti eta xitala. Patziku Perurena

Ez nekien hain **erretxina** zinenik estilo kontutan. Jon Muñoz

-Don Bildurrekin? -galdetuko du irakurle **erretxinen** batek. Bernardo Atxaga

Harry Potter! -oihu egin zuen erabat **erretxina** eta zaputza zirudien ipotx batek, jende artean ukondokoak emanez Harryrengana iristeko. Iñaki Mendiguren

Beste mamuek saihestu egiten zuten Baroy Odoltsua, Slytheringo mamu **erretxin** eta begirada finkokoa, odol-orbain zilar-kolorez estalita zegoena, baina horrek ez zuen Harry harritu. Iñaki Mendiguren

Smith **erretxin** harengan bermatu izan zen bere xelebrekeriei eta metodo ezaxolatiei bide emateko. Oskar Arana

Marmarti **erretxin** hutsa izan naiz. Mirentxu Larrañaga

Lehen gauean Mañot etxe-mutilarekin ari zelarik aditu nion doinu **erretxin** bera zerabilen: [...]. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Dena zure kulpagatik!, kexatzen zitzaidan Annette, berebiziko nazka ematen zidan modu **erretxin** batez. Anjel Lertxundi

Harridura jasanbera zen, ez **erretxina**. Mirentxu Larrañaga

Annettek ere oihu egiten zidan zalditxo zuri batetik bere hoskera zorrotz **erretxinaz**: zu zara gure sekretu madarikatuaAgurea zapuzten hasita zegoen Andreasen gustuarekin asmatu ezinez, eta, bi eskuak airean astindurik bele-saldo bat erasoan ari balitzaio baino **erretxinago**, erronka egin zion: [...]. Anjel Lertxundi

3 (izen gisa)

Behera joan beharko dugu, Willemen **erretxina** areagotu baino lehen. Anjel Lertxundi

Erretxin-puntu batez mintzo da gero: [...]. Anjel Lertxundi

4 (adizlagun gisa)

Leihotik begiratzen du Hemek kalera, **erretxin**, bere auzoek tesitura barregarri hartan ikus ez dezaten jainkoari erregutuz. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
agure erretxin (3); **erretxin bat** (4); **erretxin eta** (4); **erretxin hutsa** (3); **eta erretxin** (5); **eta erretxina** (9)

---

erretxina *(orobat **erretxin** g.er.)* **1** *iz* alkoholetan urtzen eta airean erretzen den gai likatsua, horia edo arrea, zenbait zuhaitz edo zuhaixkari dariena azalean ebaki bat egiten zaienean.

Urre ona hangoa; badira han **erretxina** eta harribitxiak ere. Elizen arteko biblia

Euskarria oihala da ia guztietan, eta zenbaitetan, batez ere hondarrekoetan, olioa, berniza, uretanoa eta **erretxina** erabili ditu. Berria - Kultura

Altzifretik eta pinutik **erretxina** ateratzen den bezala, zedrotik, hain zuzen, zedro-olioa esaten zaion koipea ateratzen da **Erretxina**, gogorra bada ere, nahiko erresistentzia mekaniko gutxikoa da. Santiago Iruretagoiena

Erretxinaren oxidazio-mekanismoari buruz. Juan Garzia

Hartu orotariko usainkiak, neurri bera bakoitzetik: **erretxina**, anbarea, galbanoa eta intsentsu garbia. Elizen arteko biblia

Haurra izan eta biharamunean berak pozoitu zuen, herrixka ondoan hazten den landare baten **erretxinaz**. Gotzon Garate

Berriketan jarduten zuen Ceccorekin teologia santuaz eta graziaren bikaintasunaz, **erretxinazko** kandela baten argitan, ohera joan aurretik. Juan Garzia

Cecco Angiolierik eskuan zeraman oskigilearen zuzi **erretxinazkoa**, hura atzeraxeago zihoala, zeruaren ebazpenak miresten. Juan Garzia

Oiartzunen, esate baterako, ezin zen **erretxinik** erabili Elorsoro kiroldegian. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erretxina sintetiko bat zen bakelita jatorriz, nahiko erabilgarria kola edo isolagarri gisa. Irene Aldasoro

Ez zegoen garbi **erretxina** akastunaren lotea non eta zertan geratuko zen. Landare-jatorriko **erretxina** fosilak. Juan Garzia

Kromato basiko bat eta **erretxina** alkidiko bat zeuzkan. Juan Garzia

1940 aldera, kopal arkaikoak, garestiak eta gerra bitartean hornitzen zailak, **erretxina** fenoliko eta maleiko hartarako egokitu batzuez ordezkatu ziren. Juan Garzia

Erretxina akastun baten fakturaren gaineko deskontu bat. Juan Garzia

Oinarrizko **erretxina** solidifikatzea sintesiak dirauen bitartean, hamar edo hogei tonako erreaktor batean. Juan Garzia

Beharbada kromatoa basikoegia zen edo **erretxina** azidoegia. Juan Garzia

Atikako eztiaren koloreko **erretxina** likidoa dauka. Santiago Iruretagoiena

Urdinduak dituztela agureek bizarrak, haien aurpegiak zimurturik daudela, begiei **erretxina** lodi eta aranondo-goma dariela. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zuk egizu ontzi bat zeuretzat, **erretxina**-egurrez. Jose Antonio Mujika

200ekoaren ertzak **erretxin**-hautsaz igurtzi eta saioari ekin zion. Berria - Kirola

Stephenek axolakabe begiratu zion **erretxina** puxka hari [...], harik eta igurtzi eta elektrizitatez nola kargatzen zen erakutsi nion arte. Xabier Olarra

Gainerako **erretxina**-sortek portaera ona zuten ke-margo sorta berarekin. Juan Garzia

Txarrangil-haziaren itxurakoa zen mana, **erretxina**-kolorekoa. Elizen arteko biblia

Haizeak inarrositako **erretxin** metxa lodiak aldi oro egiten zion argi eta itzal begitarte honi. Koldo Izagirre

Erretxin-suzi bat sutua zeukan burdinazko ganderailu handi bati eusten zion eskuan buru gainetik. Koldo Izagirre

Esaten zenez, zenbait boladatan, inguruotan gehiago ziren lapurrak jornalariak, **erretxin**-biltzaileak edo bestelakoak baino. Jon Maia

Etxeari argizari, **erretxin** eta klera usaina zerion zoko guztietatik. Harkaitz Cano

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pinu-**erretxinaren** usaina ekarri zuen aireak. Anjel Lertxundi

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Berniz-**erretxina** sorta bat inportatua genuen -egurats-giroan utzirik besterik gabe tenperatura arruntean solidifikatzen diren horietakoa, hain zuzen-, eta kezkaturik geunden. Juan Garzia

Hernaniko pospolo kimiko kaxa bat, Elizondoko kandelen ordezkoa egiten duen **erretxin** barra kaxa bat, Koldo Izagirre

5 erretxina zatia.

Ez duzue **erretxina** triste baten argirik ere! Anjel Lertxundi

6 (adizlagun gisa) erretxindurik.

Amona Erikak, **erretxin**, leihorik zabaltzen ez zutelako zela esaten zuen. Anjel Lertxundi

Deabruak eramango ahal ditu madarikatu horiek!, esan zuen **erretxin**. Anjel Lertxundi

Judua haiz, meritu gutxi iruditzen zaik?, erantzun zion Hermannek, mespretxuz eta **erretxin**. Anjel Lertxundi

7 haserrea.

Behera joan beharko dugu, Willemen **erretxina** areagotu baino lehen. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta erretxina (9)

---

erretxinatsu *(orobat **erretxintsu**)* *izond* erretxina duena.

Geure lurreko eta gaueko argiak ere, kriseilu eskegiak eta ke ugariko argi zalanzkorrez dizdiz egiten duten zuzi **erretxinatsuak**, berdin saiatzen dira, sua lagun, argi berria hornitzen. Xabier Amuriza

Lurrun arin bat zerien, baina ikatz gainera gai **erretxinatsu** eta usaintsu bat botatzen zutelako, intsentsua eta benjuia nahasiz sortutakoa. Karlos Zabala

Ocote: pinu-mota **erretxintsu** bat, zuziak egiteko baliagarria. Juan Garzia

---

erretxindu, erretxin(du), erretxintzen **1** da/du *ad* zapuztu.

Zergatik, baina? -**erretxindu** zitzaion agurea. Anjel Lertxundi

Agurea **erretxindu** egin zitzaion, beretzat guztiz sakratuak ziren gorabehera haien aurrean Andreasek axolagabekeria erakusten zuelako. Anjel Lertxundi

-Ez dun ezer ulertu! -**erretxindu** nintzaion. Anjel Lertxundi

Txapli **erretxintzen** hasita zegoen. Unai Iturriaga

Senarraren gonbiteari erantzun gabe egon zen Mathilde, harik eta zuhurtasunaren zentzuak senarra **erretxintzen** hasiko zitzaiola adierazi zion arte. Anjel Lertxundi

Esan, pentsatu eta idazten zuten guztiak **erretxindu** egiten zuen. Fernando Rey

Itzulerako bidaian **erretxindu** ninduen kontu bakarra Ritaren akordua izan zen. Hasier Etxeberria

Gorroto dut **erretxindurik** eta asperturik egotea. Oskar Arana

Nagusiak tratu txarrak ematen badizkio, zakurra **erretxindua** eta haserre ibiliko da. Gotzon Garate

-Aizak, biharamunarekin **erretxinduta** bahago, ez duk nire errua, aditu? Unai Iturriaga

Kantu bakarraren lauzpabost bertsio egitera iritsi ziren, eta ondoren, behin eta berriz jo zituzten bata bestearen ostean, harik eta lehenengo solairuko auzokidea **erretxinduta** agertu eta dena bukatu zen arte. Unai Iturriaga

Etxera zihoan bueltan, aurrera begira, andre ilehoriaren doilorkeriak **erretxinduta**. Lopez de Arana

Egun hartan, dena dela, oso muturtuta nengoen, arras **erretxinduta**. Fernando Rey

Hagrid berehala agertu zen, oso **erretxinduta**, baina nor ziren ikustean berehala alaitu zitzaion aurpegia. Iñaki Mendiguren

2 (era burutua izenondo gisa)

Bizkarrean emandako kolpetxo adeitsuekin baretu nahi izan nuen Herio, zernahi zelarik ere haren jarrera **erretxinduaren** kausa. Anjel Lertxundi

Eztabaidan jarraitu genuen Maximilian plazarako bidean, nik behintzat Angelaren ahots **erretxindua** entzuteko atsegin hutsagatik egiten banuen ere. Alberto Ladron Arana

Askotan egondua nauzu bere jarrera xitalari, bere kantamodu **erretxinari** eta bere desapio lotsagabeei begira, eta egia esan, ez zait iruditu sekulan, batere txori klase noblea denik. Patziku Perurena

Justu kontrakoa esaten ari nintzen ni -egin zuen protesta Arruek, doi kontrolaturiko zinkurin **erretxindu** batez. Anjel Lertxundi

Hala ere, ez zen zahar **erretxinduaren** estereotipoan sartzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Markos ez zen oso baikorra, eta **erretxindu** samarra zela ere esan liteke; baina bazuen ironia bat oso berea eta oso errotua eguneroko bizimoduan, eta bere sententziak ez ziren alde batera uzteko modukoak. Jon Alonso

· Atzera lehengo tokian eseri eta, **erretxindua** ez agertzearren hain zuzen ere, luzaroan jardun nintzaion neure lanbideari buruz. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erretxindu egiten** (5)

---

erretxinkeria *iz* erretxinari dagokion egite makurra.

Despota baten gisa gobernatzen zuen etxea, Andres bere onetatik ateratzen zuen **erretxinkeria** eta abandonuzko, despotismo eta arbitrariotasunezko nahaste batez. Josu Zabaleta

---

erretxintsu ik **erretxinatsu**.

---

erretzaile *(orobat **erretzale** g.er.)* **1** *iz* tabakoa edo kidekoak erretzen dituen pertsona.

Erretzaileen artean 22 aldiz handiagoa da biriketako minbizia izateko arriskua. Berria - Euskal Herria

Ezaguna da amerikar gehienek **erretzaileei** dieten ezinikusia. Harkaitz Cano

Erretzaileak poztuko dira, tabakogileen akziodunak ez hainbeste. Berria - Ekonomia

Erretzaileok gero eta piztia bakartiagoak bilakatzen ari gara azken bolada honetan, galtzeko zorian dagoen espeziea, bitxikeria zoologikoa. Patxi Iturritegi

Bi ordu erre gabe egotea gehiegi da **erretzaileentzat**. Berria - Euskal Herria

Goiko zatia **erretzaileentzat** eta behekoa erretzen ez dutenentzat. Berria - Harian

Bertan, **erretzaileek** lasai demonio erre dezakete, ingurukoen begirada erasokorrik nozitu beharrik izan gabe. Harkaitz Cano

Hala, bada, umetatik izan naiz **erretzaile**. Joan Mari Irigoien

-Aizu, jauna; bagoi hau **erretzaile** ez direnentzat da. Josu Zabaleta

Emakume handi bat zen, **erretzailea** garai hartarako, zigarroa beti ezpain-ertzean; hamar seme-alaba izan eta alabak umetan neskame bidali behar izan zituen. Arantxa Iturbe

Esaten nien nola ni neu ere **erretzailea** nintzen, eta tratu bat egin genezakeela, egunero zigarro bat gutxiago errez eta kontsumoa, apurka, erdira jaitsiz, gero beste erdira eta beste erdira, ohitura txar hura errotik kendu arte. Joan Mari Irigoien

Boz bat, hortzik gabea eta marrantatua, lau zigarro paketeren **erretzailearena** bezain, anaiari galdezka: [...]. Aingeru Epaltza

Ardo koloreko besaulki batez oroitzen nauk, **erretzaileen** gelan egoten baitzen. Xabier Olarra

Orain arte ondo konpondu gara **erretzaileen** guneetan. Berria - Euskal Herria

Gizona ez da edatuna, baina maite du noizean behin pattar on bat, **erretzaile** izan gabe bazkalosteetan tabakoa erretzea gogoko duen zio berarengatik; plazer hutsagatik. Edorta Jimenez

Bagoia ez **erretzaileentzakoa** zen eta Veronicaren ondoan eseri zen emakumeak lau hatzekin zigarro bat sustengatzen zuen arren, zigarroa itzalita zegoen. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kazetari burua zen Farr jauna, takigrafo trebea, **erretzaile** amorratua, edale garratza. Koro Navarro

Erretzaile porrokatua izan arren, ez zuen nire aitaren aurrean, ordea, zigarrorik ateratzen. Ramon Saizarbitoria

Ez erretzetik **erretzaile** konpultsiboa izatera pasa zen Julia oso denbora gutxian. Jasone Osoro

12:00ak jotzearekin batera, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, **erretzaile** bakan batzuk irten ziren zigarroa erretzera. Berria - Euskal Herria

Erretzen hasteko batez besteko adina 13,1 urtekoa da, 14 urte betetzerako mutilen %4 eta nesken %7 ohiko **erretzaile** dira. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bere eskuek **erretzaile** keinu bat egin dute. Pello Lizarralde

2000-2001ean, Hegoaldean, %50,6ek tabakoa erretzen zuten: gizonetan %33,3 eta emazteetan %24,4; 25 urtetik 34erainokoetan dugularik **erretzaile** kopuru handiena. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Inguruetako xelebre guztiak hurbildu zitzaizkidan, hala marihuana-**erretzaileak** nola burutik nahastutakoak edo salgai zeuden aldizkarietan orripasa bat egiten uzteko eskatzen zidaten eskale edo eskaleondoak. Bernardo Atxaga

Haxix **erretzaile** madarikatu horrek zoramena eman dik oinordetzan. Patxi Zubizarreta

Basotik datorren arrotza, zikina, gaizki jantzia, pobrea, gaiztoa, herriko umeak beldurtzen dituena, lapurra, triperoa, mozkorra, pipa **erretzailea**, eta betiere ikazkina. Patziku Perurena

Zarandona txapelduna harmailean zegoen eta haren janzkera deportiboak kontraste bitxia eragiten zuen inguruan zituen puru-**erretzaile** gorbatadunen alboan. Josu

Landa

Puru **erretzaile** batek eduki behar dituen tresna sofistikatuak -purua moztekoa, supizteko egokiak, larruzko toxak... Jon Alonso

Beatlesak, Bob Dylan, Joan Baez, Simon and Gardfunkel, eta beste hainbeste; haietarik anitz ziren, finean, belar-**erretzaileak**. Joan Mari Irigoien

1991eko legeak [...] arau zorrotzak ezarri zituen indarrean erretzaile eta ez **erretzaileen** guneak sortzeko gune publikoetan. Berria - Harian

5 (izenondo gisa)

Salbuespena denda txikiak dira: langile **erretzaileentzat** gune bat egokitu ahal izango dute, betiere jendea ibiltzen den tokietatik aparte. Berria - Euskal Herria

Ikerketaren arabera, emakume **erretzaileen** arriskua askoz handiagoa da: %138 eta %143 artean handiagoa. Berria - Gaiak

Apaiz **erretzaile** amorratu batek errezuan ari zen bitartean erretzeko baimena eskatu zion behin bere gotzainari. Joxerra Garzia

6 adierazten dena erretzen duen pertsona.

Haragia hauta zen, Pinaki tokiko zikiro **erretzaileak** zuen prestatua. Herria

Gorpu-**erretzaileek** ez dituzte emagalduok erre nahi. Gotzon Garate

Hitz horietan gisulabe **erretzaileak** kolpez hartzen du eta suaren erdirat aurtikitzen. Xipri Arbelbide

• **7** *izond* erretzen duena.

Gauza jakina da suak objektu batzuk urtu egiten dituela, beste batzuk gogortu, egosi, erre, zuritu eta belztu egiten dituela, eta norbaitek suari "zuritzaile", "beltzaile", **"erretzaile"**, "egosle", "gogortzaile" eta "urtzaile" delako atributuak egotz baliezazkio, egia lerrake. Xabier Kintana

Gure kanpalekuaren hegoaldean 3 airekok kezko zerku handi bat egin zuten, eta bonbardier taldeak, batzuk besteen ondotik, gain behera sartzen ziren, eta beren fozforadun bonba **erretzaileak** botatzen. Marzel Etxehandi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erretzaile amorratua (4); **erretzaile ez** (10); **erretzaile kopurua** (4); **erretzaile porrokatua** (4); **erretzailea naiz** (4); **erretzaileak dira** (3); **erretzaileak eta** (3); **erretzaileak ez** (3); **eta erretzaile** (7)

---

erretzale ik **erretzaile**.

---

erretze **1** *iz* zerbait suaren bidez ahitzea; suak edo berotasun gehiegiak zerbait hondatzea.

Erretze bakoitzeko 8.000 bat rupia eskatzen dituzte (300 bat dolar). Gotzon Garate

Konbustioa nahiko prozesu kimiko konplikatua da, eta ez da nahastu behar **erretze** mota landugabeagoekin. Irene Aldasoro

Anarkismo hutsa zen bazterretan karraskan hedatzen eta nagusitzen ari, hain ziren nahasmenduak ugari, hala nola jende tirokatze, eliza eta komentu **erretze** eta horrelako abrekeria edo basakeria frango. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Auto **erretze** eta gaineratiko. Herria

Aurten Zan Pantzarren **erretzea** Gibelarteko plazaren edo kartieraren aldi zen. Herria

2 janariak suaren eraginpean prestatzea, zuzenean nahiz labean ezarriz.

Antton nork ez du ezagutu, dela xerri hiltze, zikiro **erretze**, ihiztari, oihaneko gizona ere zen. Herria

· **Erretze** kontuak aipaturik, letren sukaldariak azkar jo du labera, pastelari beste begiratu bat ematera. Patxi Zubizarreta

---

erretzear *adlag* erretzeko zorian. *irud/hed*

Autobus horixka zuten zain heroi portugaldarrek, eta herria **erretzear** baina zain hoteleko ataritik hasi eta bidean zehar sakabanatua. Berria - Kirola

Irudi indeferentziaz jantziak solastarien aurpegiek apainduak eta herria **erretzear** eguzkitan hegan abiatu nahi luketen bandera eroen itzalpean, arratsaldeko bostak aldera hasi zen festa. Berria - Kirola

Eta Athletic **erretzear** dago. Berria - Kirola

---

erreuma **1** *iz* hezur loturetako edo giharretako eritasun mingarria. ik **erreumatismo; hezueri**.

Erreuma zuen, nekea besoetan, baina zerbait jotzeko gai bazen artean. Iñigo Aranbarri

Haiekin baterat, zoko batean, bertze bi gela zeuden: bata biltoki tipi bat zen, eta bertzea logela bat, aitona Nikolasek bere egin zuena **erreumak** ezindu zuenean. Joan Mari Irigoien

Erreumak jota bizi baitzen. Felipe Juaristi

Chasuble doktore dohakabea **erreumak** hartuta dabil. Antton Olano

Hala jarraitu zuen luzaz, harik eta **erreumak** aldaka erasan eta etxeko eskailerak bakarrik igotzea ia eragotzi zion arte. Josetxo Azkona

Gorreria, **erreumak** sortzen dion herrena, ikusmena ere hutsegiten hasia... zer gehiago eskatu behar diozu zahartzaroari! Joxemari Urteaga

Zenbat esaldi zentzuzko jaulki zituen bere laborearen kargapean tolestuta, **erreumak** makurturiko nekazari jakintsuak! Pello Zabala

Erreumak hezurretan eragiten zion minarekin kexu eta arranguratsu. Joan Mari Irigoien

Bihotzeko gaitzak saihesteko aski lagungarritzat jo dira gantzok, bai eta **erreuma** eta diabetesa arintzen laguntzeko ere. Berria - Gaiak

Erreumaren seinaleak eta ondoreak areagotu zitzaizkidan. Joan Mari Irigoien

Erreumari aurre egiteko amak erabili ohi zituen asun mota berdinak begiztatu zituen Giovanni Mazonik. Joxemari Urteaga

Ba nik ez diat begirik itxi **erreuma** zikin honekin. Berria - Kultura

XVIII. mendeko agiri batzuek diote San Joan egunean jendea bertara joaten zela ura edatera eta bainua hartzera, horri esker negua arnasketa eta **erreuma** arazorik gabe pasatuko zutela sinetsita. Berria - Euskal Herria

Ipar edo iparrekialdetik jotzen duen haize latza, sukarra eta **erreuma**-handitsuak berekin ekarri ohi dituena, hango sorgileek azpijokoz bidalia dela uste baitizute. Patziku Perurena

2 irud/hed

Tren berriek zaintiratuak izaten dituzte eta zaharrek **erreumak**. Unai Elorriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

erreuma zuen (3); **erreumak jota** (3); **eta erreuma** (4); **eta erreumak** (4)

---

erreumadun *iz* erreuma duen pertsona.

Erreumadunak eta beste, gaitzetatik sendatu nahi dutenak oro, iturri horietara jotzen dute samaldan. Pello Zabala

---

erreumatiko *iz* erreumarena, erreumari dagokiona.

Garrantzi handiko gaia izan daiteke etorkizunean, zeren giltzaduren lubrikazio-ajetzat har baitaitezke guk guztiok, nahiko denboran bizitzea gertatuz gero, nozituko ditugun gaixotasun **erreumatikoak**. Irene Aldasoro

---

erreumatismo *(orobat **errematisma**) iz* erreuma, hezueria.

Haize-lasterrak eta soinekorik ezak, ubileria (**erreumatismoa**) ugaritu dute atxilotuen artean, bai eta idorberia (bular-galtzea) ere. Jokin Urain

Duela bi aste Maddi Olha Bortzirietakoa pausatu da 76 urtetan, luzaz eri egonik gorputzeko junten **errematismekin**. Herria

Adinarengatik ez zen lotsa eta baratzean aritzeko bazuen oraino trenpe, aitzurra airoski bazerabilan, nahiz eta gerruntzeak **errematismek** minberatuak izan. Michel Oronoz

---

erreus *izond* balio ez duena.

Osabak ordain-saritzat dozena erdi arrautza onartzen zien, edo baratzeko urraza, edo apika oinetako **erreus** parea. Juan Garzia

Segidan -ni ez naiz kondaira huntakoa, jendartearen osasuna aztertu, sailkatu, kontrolatu nahiko zenukeen apezkondo eta ustezko epaile **erreus** hori. Jose Angel Irigaray

• **2** *adlag* urduri.

Kontua da ezen Bolognatik jalgi behar izan genuenean, gau haietarik bat eman nuela, osabaren zurrungen artean, **erreus** eta ekurugaitz. Joan Mari Irigoien

Aita **erreus** eta urduri jartzen hasi zen. Joan Mari Irigoien

Konplimenduaren gibelatzeak asaldatzen ninduen eta urduri eta **erreus** jartzen ninduen. Joan Mari Irigoien

---

erreusipen *iz ipar* erreusitzea.

Goresmenak **erreusipen** horrentzat eta segi aintzina, betiko omore on horrekin. Herria

Badira horrela egun arruntagoak, non **erreusipena** ez baita saio onaren ondotik etortzen. Herria

Emaitza bera mintzo da, lehen denbora erdikotzat 13 tantoren abantaila hartua zuten eta **erreusipen** handiagoarekin emendatu dute bururaino. Herria

Bigarren denbora aldiko **erreusipen** eskasek eta garrazki zigortu hutsek erakarri dute Angoulême-tarren irabazia. Herria

Ondotik hurbil dator Angeluko Sainte Anne%-eko 96 **erreusipenekin**, Donibane Lohizuneko San Tomas girixtinoa eta Ravel publikoa lerro berean doatzi %-eko 88 arekin. Herria

---

erreusitu, erreusi(tu), erreusitzen *(orobat **errexitu**),* du *ad* ongi atera, lortu. ik **kausitu 2**.

Literarioki Unamuno-k plano historikoak lotzen dituen bezala, bere esperientzia pertsonala, Gaztelara irtenda **erreusituz**, Bilboko historiaren paradigma da. Joxe Azurmendi

Etsaminak **erreusituz**, iratzarri orduko otoitzean murgildua, maite nuen neska ezin ahantziz. Piarres Aintziart

Alderantziz ederki **erreusitu** zuen sozietatean: [...]. Itxaro Borda

Euskal Herrian **erreusitzen** zuen gaztearen arketipa zela. Itxaro Borda

Galdeei ez zihoazkien erantzunak **erreusitzen** zutenen partetik erdietsiz. Itxaro Borda

---

erreusitze *iz* ongi ateratzea, lortzea.

Atsegina, **erreusitzearen** seinale zen. Itxaro Borda

---

errex ik **erraz**.

---

errexent ik **errient**.

---

erreximendu ik **erregimentu**.

---

erreximenta *(orobat **erreximeta**) iz* konfitura, marmelada.

Gurinari **erreximenta** gehitu nion, oparo. Aingeru Epaltza

-Gurina lodi-lodi eta **erreximenta** mehe-mehe, gustatzen zainan bezala. Aingeru Epaltza

Sukaldean, kafesne beroa zain nuen mahai gainean, eta irekiak marrubizko eta mertxikazko **erreximenta** poteak. Aingeru Epaltza

Janariak: kir, salda, legatza koskera, ahatekume fartzitu sahetsa jusarekin, kuiattoa esne opil gisa, lursagar xigortuekin, ardi gasna, gerezi **erreximetarekin**, melekeria, Irulegiko arno xuri eta gorria, kafe ondokoarekin. Herria

Landa sagar-ondoak, horrela sagarno izanen dugu, bai eta sagarrak eta sagar **erreximeta**. Xipri Arbelbide

Halatan saltxitxak, haragi karioak, xingar azpiak, errietak, txorizoak, lukainkak, tripotxak, pateak, ezti-ontziak, arrautzak, antzara- eta ahate-gibelak, oilaskoak, xinaurri **erreximentak**, zizareak kintalka, matahamiak, gurinak, gaztanbera eta gasnak metatzen zitzaizkigun, Herri Urratseko kamiseta ugariez gain, erosteko ahalmen finkatua zuten jendeei "oparitzeko". Itxaro Borda

---

erreximentegi *iz* marmelada egiten den denda.

Gaby Etchebarne ere hor, bere liburu fresko arrakastatsuarekin! Jendeak bisitatu ahal izan dituela ere lantegiak, arraintegi, gazitegi, **erreximentegi** eta bertze. Herria

---

erreximenteria *iz* marmelada egiten den denda.

Emaitzak emendatu dira aurten: sukrea, kafea, xokoleta, bixkotx idorrak eta **erreximenterian**. Herria

---

erreximentu ik **erregimentu**.

erreximeta ik **erreximenta**.

errexiñola ik **erresiñol**.

errexiñula ik **erresiñol**.

errexitu ik **erreusitu**.

errexki ik **errazki**.

errextasun ik **erraztasun**.

errextu ik **erraztu**.

errez ik **erraz**.

errezale **1** *izond* erretzea atsegin duena.

Zerrenda apur bat luzatuz, zaku handitxoa ere gerta dakigukela jakinik, ikusagun zorioneko industria-lan edo giza-jarduera **errezale** horrek zenbateko lanak sortu dizkigun. Pello Zabala

2 tabakoa erretzea atsegin duena.

Eta **errezaleak** ez zirenek ere bizarra utzi zuten lagunei eman ahal izateko, zenbaitzuek, egia esan, saldu egiten zuten arren. Koldo Izagirre

errezarazi, errezaraz, errezarazten du *ad* errezatera behartu.

Oraintxe ikusi dugu Lizarraga, askotan errosarioa errezatzen eta **errezarazten** duen gizona, ez dela aingerutxo errukior bat. Txillardegi

Mutilen logelen ondoko zorua lapikoz, pertzaz eta aulkiz josten zuen gauez norbaitek irteteko saioa eginen balu bera garaiz konturatzeko, errosario saindua ere **errezarazten** zien. Xabier Mendiguren Elizegi

errezatu *(ETCn **1.966** agerraldi)* , erreza(tu), errezatzen du *ad* otoitz egin. ik **otoiztu**.

Errezatzen badakik, gazte? Inazio Mujika Iraola

Errezatu egin nuen, zeruak ere nekatu nituen errezoka. Koro Navarro

Neuk asko irakurri eta **errezatu** arren. Joan Mari Lekuona

Sally belaunikatu eta Jainkoari **errezatzen** hasi zitzaion, argi eta ozen, gizonak entzun zezan. Koro Navarro

Errezatzeko eta damutzeko esan zidan apaizak. Joxan Elosegi

Zakutoa eskaileretan zenuela gogoraturik eskatu zenidan itxoiteko, eskuak **errezatzeko** maneran ipinita. Eider Rodriguez

«Ni bekatari» **errezatu** baino, alderdi guztiak «zu bekatari» errezoan. Berria - Kirola

Hilobia itxi zuten gero, eta hilobi-zulatzaileak Kaddish-a **errezatu** zuen. Koro Navarro

Frantziskoren aurretik ere (Karlomagnoren garaiaz gero segur aski) ohikoa zen, errezo ofizialez gain, ofizio eta brebiario pribatuak **errezatzea**. Askoren artean

Ez dela aterako Purgatoriotik meza horiek **errezatzen** ez badizkiote? Juan Garzia

Frantzisko dohatsuaren ofizio hau **errezatu** nahi duenak, egin beza honela: [...]. Askoren artean

-Zergatik ez haiz joan errosarioa **errezatzera**? Hire aitonaren bederatziurrenean gaudek. Juan Garzia

Hura entzutean, emakumea iratzarri eta ikaraz **errezatzen** hasi zen: "Agur, Erregina, Ama errukiorra". Askoren artean

Denverrek barrura so egin zuenean, ama ikusi zuen belaunikatuta **errezatzen**. Anton Garikano

Aitak han jarraitzen zuen, geldi-geldi, hanka-zabal, eskopeta besapean, eta apaiza ahuspez ari zen **errezatzen** aldare aurreko harmailetan. Koldo Biguri

Juan de Panoniak grekeraz **errezatu** zuen, eta gero hizkuntza ezezagun batean. Juan Garzia

Zuek badakizue Jesus ere Satanen kontra borrokatu zela, basamortuan **errezatuz** berrogei egunez. Juan Kruz Igerabide

Mojetara eraman zuen ebakuntzaren egunean gaixo haren alde **errezatu** zezatela eskatzeko. Arantxa Iturbe

Seguru asko, nigatik **errezatzen** ariko zen josten zuen bitartean. Anjel Lertxundi

-Anne, aita ez da etorriko oraindik, nahi al duzu nik **errezatzea** zurekin? Josu Zabaleta

Salmo hau (Herri guztiok) Igokundetik Jaunaren Abendua arte egunero era berean **errezatzen** da, hau da, erantsitako txatal eta guzti. Askoren artean

Berriz ezkon dadin **errezatzen** ez dudanean, erle saldo puta batek ziztaka hil dezan **errezatzen** dut. Koro Navarro

Atso zahar hark errietan egiten zion askotan, ez zelako sinagogara **errezatzera** joaten gainerako juduak bezala. Koro Navarro

Frantziskoren aurretik ere (Karlomagnoren garaiaz gero segur aski) ohikoa zen, errezo ofizialez gain, ofizio eta brebiario pribatuak **errezatzea**. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde errezatu (6); **angelusa errezatu** (3); **bat errezatu** (6); **bat errezatuz** (3); **egunero errezatzen** (3); **errezatu behar** (5); **errezatu beharra** (3); **errezatu egin** (3); **errezatu eta** (5); **errezatu nahi** (3); **errezatu ohi** (4); **errezatu ondoren** (3); **errezatu zuen** (8); **errezatuko zuela** (3); **errezatzen ari** (8); **errezatzen eta** (4); **errezatzen ez** (4); **errezatzen hasi** (10); **errezatzen hasi zen** (5); **errezatzen zuen** (4); **errezatzen zuten** (3); **errosarioa errezatzen** (5); **eta errezatzeko** (3); **eta errezatzen** (6); **liturgia errezatzeko** (4); **maitinak errezatzera** (3); **maria bat errezatuko** (3); **nola errezatzen** (3); **ofizioa errezatzeko** (3); **orduen liturgia errezatzeko** (4); **otoitza errezatzen** (4)

errezebimendu ik **errezibimendu**.

errezebitu ik **errezibitu**.

errezebitze ik **errezibitze**.

errezel **1** *iz* oihalezko atala, gehienetan mugikorra, leiho eta kidekoetan estalgarritzat, babesgarritzat edo apaingarritzat erabiltzen dena. ik **gortina; erridau**.

Ez zegoen aterik, ia sumatu ere egiten ez zen haize-laster baten bultzadaz leun-leun mugitzen zen **errezel** bat baizik ez zegoen. Jon Muñoz

Gorde hituen han gauza eder eta nobleak: **errezel** eta tapizak, brontze, zilar eta kristalezko gauzak, altzariak, oihal finak... Xabier Olarra

Baten bat begira egoan **errezel** arteko zirrikitutik... mutiko bat... Iñaki Mendiguren

"Double face" horietariko damaskozko **errezel** eta ohegainekoak. Juan Garzia

Errezel eta pertsianentzako errailak egiten ditu Newellek Gasteizen. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Leiho eskergak bildurik daude, **errezel** grisak erdi itxita. Xabier Olarra

Ez zegoen ziur **errezel** gorriminen distiragatik ote zen, baina neskatoaren ile oparoak kolore gorrixka zuen. Ibon Uribarri

Bost zutabedun ohe, belusezko **errezel** gorri-gorriz apainduak. Iñaki Mendiguren

Kristalen atzeko **errezel** zuri txikiak. Karlos Zabala

Errezel zeru-urdinen artetik argi izpiak iragazten dira. Xabier Paya

Eta mutil haren ahotsa entzungo nuen Belar izpien salmoa errezitatzen **errezel** lodiek eta kolore nabarrek ilundutako egongelan. Koro Navarro

Musikaren indarrak altzariak altxatzeko adinako indarra zuela zirudien, indar ezkutuko batek leihoaren beste aldetik **errezel** astunak puzten zituela. Xabier Olarra

Errezel gorrizko ohea. Josu Zabaleta

Hara hurbildu zelarik, urrezko **errezel** batzuk baztertu eta, kandela batzuen argitan, emakume ezin ederrago bat begiztatu zuen. Patxi Zubizarreta

3 (hitz elkartuetan)

Belus purpurazko **errezel** multzo itzela, ia gela osoa hartzen zuena. Jon Muñoz

Errezel oihal bat bat-batean erdi-erditik urratu eta bere begiak gauza ezezagunetarako zabaldu zitzaizkiola iruditzen zitzaion. Josu Zabaleta

4 irud/hed

Hirurak entzuteari lotu ziren, lanbrozko **errezel** hura noiz altxatuko zain. Karlos Zabala

Lanbroa belus grisezko **errezel** lodi baten gisa ezartzen zen leihoetako kristaletan. Monika Etxebarria

Teilatu pikoak ikusten zituen, eta hezetasunez blaitutako zeruko **errezel** saretuen artetik zerura altxatzen ziren tximinia gris eta okertuak. Xabier Olarra

Lurrina zerion lurrari faroen argitan, euri epel eta astunezko **errezel** baten modura. Joxe Austin Arrieta

Oihanera iritsi zirenean, adarrak ia biluzik zeuden eta euri **errezel** trinko batek Breeko Muinoa ezkutatzen zuen. Agustin Otsoa

Zeru berun-koloreak, kobrezko izpi batzuekin, mahasti hautsez estaliak argitzen zituen, eta eguzkia gandu-**errezel** lodi baten atzean ari zen ezkutatzen. Josu Zabaleta

Errezel itxiek eragotzi egiten zioten argiari barruratzea, eta iluntasun hartan, beraz, bakarrik itzalak ikusten zituen. Juan Garzia

Guztiek burua makurtu zuten, eta ontzitxoek huntzezko **errezel** bat zeharkatu zuten. Iñaki Mendiguren

Zeru distiratsu baten gainean, gailurrak nabarmentzen zituen mendi handi berdeen **errezel** bat. Fernando Rey

Aitaren ahots larrituak bidea urratu zuen oinazearen **errezel** gorrien artetik. Alberto Ladron Arana

Irriñoa desagertua zitzaion, damuaren **errezel** goibelak ordezkatua. Aingeru Epaltza

Gero andreak, neskatxak... Beyaziteko hiriaren gainera hileta-auhenezko **errezel** bat jaitsi zen. Fernando Rey

Ai, Sara Huarte, begietan Kantauri itsasoko ur berde ekaiztsuak zituena, laino lurruntsu bat **errezel**! Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belusezko errezel (4); **errezel artetik** (3); **errezel astunen** (3); **errezel bat** (8); **errezel baten** (3); **errezel eta** (4); **errezel zuri** (3); **errezela ireki** (3); **errezela itxi** (4); **errezelak baztertu** (3); **errezelak baztertu eta** (3); **errezelak eta** (4); **errezelak itxi** (7); **errezelak itxita** (3); **errezelak mugitu** (3); **errezelak zabaldu** (3); **errezelaren atzean** (4); **errezelaren azpian** (3); **errezelen artetik** (4); **errezelen atzean** (9); **errezelen atzetik** (5); **eta errezelak** (10); **eta errezelaren** (3); **larruzko errezelak** (5); **leihoetako errezelak** (3); **leihoko errezel** (3); **leihoko errezelak** (6); **oheko errezelak** (3)

errezelatu, errezela(tu), errezelatzen du *ad* susmatu.

Timberland txamarra erostearena burutik kendu behar izan nuen, halako tokian askorik iraungo ez zidala-eta **errezelaturik**. Jesus Mari Mendizabal

Etsaiak hiri bateko berriak jaso ditzakeela **errezelatzen** denean, ateak ixten dira eta agintzen da, heriotza-zigorpean, inork ez dezala harresietatik salto egin. Juan Martin Elexpuru

Une hartan, ohean etzanda ilunpetan, sabaira begira geldi-geldi, eta bizia baino hila nirudiela, aititari buruz zerbait jakitera iritsi nintzela **errezelatu** nuen, alegia bera ere seguruenik erresuma hartan bizi izan zela denbora guztian. Pedro Alberdi

errezeldun *iz* errezela edo errezelak dituena.

Baldin Tawe itsas hiri handiagoa balitz, izango ziren lurpeko solairuan film berdeak emango zituzten gela **errezeldunak** behintzat. Koro Navarro

Ez zen gehiago arduratu bere aitaren abenturez, zeina gizon txiki hautsez bete bat zen, txano batez eta alpakazko berokiaz jantzia, egun osoa zutik eta marmarka ematen zuena belarrez betea zegoen eta paretak zulo **errezeldunez** estaliak zituen denda batean. Koro Navarro

errezelo *(orobat **errezelu** g.er.) iz* susmoa, goganbeharra.

Sublimazioa eta herra, konfiantza eta **errezeloa**, lotsa eta lotsagabekeria, xalotasun tontoena eta gaiztotasun ankerrena, denetik ikusia naiz ni jendeak grabatuari eskaintzen dizkion begiradetan. Anjel Lertxundi

Aldaketak beti sortzen du **errezeloa**. Luis Elberdin

Nire **errezeloa** baietsi dit Reisek: kontrola galdu dut! Anjel Lertxundi

Errezeloa egia bihurtuko zen, beraz. Pedro Alberdi

Tenpleren **errezeloa** da -eta nirea ere izaten hasi zen- indar horiek, autismoaren alde onak, txarrekin batera doazela. Xabier Olarra

Nik badut halere **errezeloa**, inork inoiz inongo sedetan edo seminariotan zuzenduko ez didan zain bihurri batek heriotzeraino lagunduko nauena. Patziku Perurena

Hura bera beste noizbait ikusia neukan **errezeloa** egin zitzaidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Mezkiten aurkako erasoetan okupazio indarrek zerikusia izan duten **errezeloa** du. Berria - Harian

Baina gure taldekoak gero eta gutxiago ote garen ere badugu **errezeloa**. Berria - Kirola

Eta nik, hirugarrenak, definizioz itsu eta sor denak, zerbaiten **errezeloa** hartu izango nian. Xabier Olarra

Oraintxe **errezeloak** hartzen hasia nago ez ote den delako moda hori pelikula merkeetatik sartu. Iñaki Segurola

Errezeloa daukat *jakintsu* hitz hori ez ote den beti edo gehienean txarrerako edo burlaizean hartzen herri-jendearen artean. Iñaki Segurola

Orain isilik nirekin daniar handia ere, **errezeloak** eta susmo txarrak daniarrak ere. Fernando Rey

Ahmetek ahantziak zituen bere beldur eta **errezeloak**, baita bere poztasun handia ere. Fernando Rey

Bilerak **errezeloak** piztu ditu Europako Batasuneko gainontzeko herrialdeetako agintarien artean eta hiru handiek fronte komun bat osatuko duten beldur dira. Berria - Mundua

Eusko Label zigiluak lortu du jendearen **errezeloak** gainditu, eta oilasko kontsumoa lehengoratzea. Berria - Gaiak

Batera nahiz bestera, elkarri minik ez egitearren sortutako gupida bihozbera horren **errezeloek** bien zorigaitza erakarriko dute, halabeharrez. Xabier Mendiguren Elizegi

Nabari zen ondo amaituko zutela afera, musutxo bat ere emango ziotela laster elkarri, beldur eta **errezelo** guztiak behin betiko uxatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire bizitza bere **errezeloen** arabera zuzendu nahi izaten du. Anjel Lertxundi

Elkarren **errezeloak** sekula faltako ez diren arren, puntu honetara heldu arteko bidea neurri batean elkarlanean egin dute eragileek, elkarren arteko komunikazioan. Berria - Harian

Ez zuten, bada, espioitzat hartu, eta haren ingurukoak lasai mintzatzen ziren batere **errezelorik** gabe. Karlos Zabala

Ez zeukan jada **errezelorik** bere buruaren geroarekiko, kanpotik zetorkion ia guztiarekiko baizik. Karlos Linazasoro

Horretarako premiazko zituela aitzakiak, arrazoi xume baina sinesgarriak, **errezelorik** sortu nahi ez bazuen. Karlos Linazasoro

Gure aitak, berriz, begiratu makur eta **errezeloz** betea jaurtikitzen zion berri eta ezezagun zen orori. Fernando Rey

Antza zenez, konfiantza eman ordez, mahai gainean jarririko agiriak **errezeloz** bete zuen tipo bekoskoa. Migel Angel Mintegi

Jende politizatuak, hiritartuak, neurotikoa denez, gizakiaganako **errezeloa** izan beharra dauka derrigor, eta **errezelo** hori konjuratzeko modurik disimulatuena, **errezelo** horren onarpenean bilatu du. Patziku Perurena

Bazkaritarako haragia saltsan ekarri ziguten halako batean [...], bada, ari nintzen platerean zegoena gogo biziz jaten, batere **errezelorik** gabe, harik eta gogortasun batekin topo egin nuen arte. Karlos Linazasoro

Elkarri begira egon ziren une luze batez: Teresa limurki, Maiza **errezeloz**. Migel Angel Mintegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Alemanok **errezelo** handia sortzen genien paristarrei. Anjel Lertxundi

Ez zion mezu hark batere **errezelo** onik eman. Harkaitz Cano

Negar hark onura ekarri zuen gonbidatuon bihotzera, eta niri, gainera, **errezelo** gaiztoak uxatzeko balio izan zidan. Karlos Linazasoro

Ez ginen fidatzen, gezurra errazegi edo hurregi ote zuen iritziko genion, edo oso goizdanik harrapatuko gintuen **errezelo** txar batek. Iñaki Segurola

Haren presentzia ez zaidak agian alferrekoa izango, eta susmoak deuseztatzeko balio zezakek, norbaitek **errezelo** txarra hartzen badit. Karlos Zabala

Hybris hitz hori da apika [...] hobekien adierazten duena urte batzuetatik hona zientziari eta zientzialariei buruz iritzi publikoak erakusten duen ikara, **errezelo** izuti hori. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errezelo eta (3); **errezelo handia** (6); **errezelo hori** (3); **errezelo horiek** (4); **errezeloa daukat** (3); **errezeloa egin** (3); **errezeloa ere** (3); **errezeloak hartzen** (3); **errezeloren bat** (3); **errezelorik gabe** (8); **errezeloz begiratu** (6); **errezeloz begiratu zion** (3); **errezeloz begiratzen** (5); **eta errezelo** (4); **eta errezeloak** (4); **eta errezeloz** (11); **halako errezelo** (3); **inongo errezelorik** (3); **inongo errezelorik gabe** (3)

---

errezelotsu *izond* errezeloz betea.

Goizean footinga egiten zuen, hamabost bat kilometro; egunean zehar ezer berezirik ez zuen egiten, kalean gora eta behera ibili besterik ez, dotore jantzita, oparo diruz, auzo urrunetan, begiak etengabe mugituz, **errezelotsu**, ikaraz bezala. Karlos Linazasoro

---

errezelotu, errezelo(tu), errezelotzen du *ad* errezeloa eman.

Euskaldunon artean, gauza batek **errezelotu** izandu nau beti: nork bere deiturako heraldikak, gauza handia bezala, etxe sarreran (edo nonahi) erakusteko duen joera nabariak. Patziku Perurena

---

errezeltxo *iz adkor* errezel txikia.

Eta leihoetako **errezeltxo** polit eder arrosa-koloreak, eta geranio arrosen lorontziak, betiere loretan zeudenak nire izenean. Mirentxu Larrañaga

---

errezelu ik **errezelo**.

---

errezeptibo *izond* zerbait, eskuarki estimuluak, hartzeko gai dena.

Errezeptibo ikusten ditugu eragileak eta ikusi dugu batez ere sindikatuen artean gogo eta borondate bat lan mundua euskalduntzeko. Berria - Euskal Herria

---

errezeptore **1** *iz* kanpoko estimuluak hartzeko gailua. ik **hargailu**.

Begiaren atzealdea geruza batez estalita dago: erretina; erretina horretan argi-hartzaileak edo **errezeptoreak** daude. Josu Zabaleta

Kontuan izanda ukipen korpuskuluak direla kitzikapen sexualaren **errezeptoreak** eta baginan ez dagoela holakorik, gizasemeok nondik atera dugu emakumeek orgasmoa koitoaren bitartez lortu behar dutela? Luis Elberdin

Errezeptore horiek dituzten zelulak, berriz, sudur epitelioaren goiko aldean daudela zehaztu zuten. Berria - Gaiak

Errezeptore horiek laztanaren estimulua jaso eta berehala burmuineko plazeraren guneetara eramaten dute, hau da, sistema linbikora. Luis Elberdin

Hain zuzen ere, horrek azaltzen du zergatik aktibatzen diren **errezeptoreak** molekula jakinekin. Berria - Gaiak

Bakterio arriskutsuen seinalea jasotzen duten **errezeptoreak** blokeatzen dituzte, zelula immuneetan. Berria - Gaiak

Zientzialaren arabera, zelula horiek dituzten TLR izeneko **errezeptore** batzuek aurkitzen dute organismo arrotza. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Baginan ez dago eszitazio eta plazeraren **errezeptore** sentikorrik -ukimenezkorik-, eta klitoria, berriz, **errezeptore** sentikorrez josita dago. Luis Elberdin

Sexuari dagokionez, larruazalak izugarri **errezeptore** espezializatuak ditu, oso sentikorrak eta sofistikatuak. Luis Elberdin

Sentimenezko **errezeptoreek** eta nerbio bukaerek bulkada elektriko bihurtzen dituzte laztanak. Luis Elberdin

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Narrastiak [...] ukitzeekiko, laztanekiko, presioarekiko eta bibrazioarekiko sentikor ziren **errezeptore** sistema bat ere garatu zuten. Luis Elberdin

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure larruazal guztian zehar daude ukipen eta laztan **errezeptoreak**, baina are gehiago genitaletan. Luis Elberdin

Klitorian mota guztietako sentimen **errezeptoreak** daude bilduta. Luis Elberdin

Baginako paretetan ez dago ferekaren estimulua jaso eta hori eszitazio sexual eta plazer bihurtzen duen sentimen **errezeptorerik**; klitorian eta aluan, bai, ordea. Luis Elberdin

Bi ikertzaile horiek usaimen **errezeptoreen** eta usaimen sistemaren antolaketaren inguruan egindako lana nabarmendu du Stockholmeko Zientzia Akademiak. Berria - Gaiak

Hatz mamiak oso ondo egokitzen dira klitoriko sentipen **errezeptoreetara**, eta ezin hobeak dira behar den estimulu, presio, bibrazio, erritmo eta tinkotasunari eusteko. Luis Elberdin

Muturrean, berriz, ukipen **errezeptorez** -plazeraren mezulariz- josita dagoen glandea dago. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errezeptore horiek (3); **sentimen errezeptoreak** (3); **ukipen errezeptore** (3); **ukipen errezeptoreak** (3); **ukipen errezeptorez** (3); **usaimen errezeptore** (3)

---

errezepzio 1 *iz* errezibitzera.

Operación H izeneko film labur hori berrikusi egingo dugu 41 urte geroago, hau da, orainean, eta aldi berean artelanaren **errezepzio** momentua aztertuko dugu. Berria - Kultura

2 harrera jaia.

Lucasek irribarre abegikorra eskaini zion eta neskak, estatua-aingeruaren aurpegiera berberaz, antzeko irribarrea saiatu zuen, diplomatikoen **errezepzio** batean baleude bezala Unai Elorriaga

---

errezesibo *izond* atzerakorra; eskuarki, jarduera ekonomikoa gutxitzen duena.

1979. urtearen amaierako politika **errezesibo** gogorrak gerraondoko atzeraldi larriena eragin zuen. Koro Navarro

Hamarraldiaren erdialdean, paira zitekeenaren muga joa zela ematen zuen, herrialde zordunei ezarritako doikuntza-politika **errezesiboen** ondorioei zegokienez. Koro Navarro

Politika horien eragin aldi berean **errezesibo** eta inflazio-eragilearen ondorioz, eta izan dituzten kritika zorrotzen ondorioz halaber, 1980ko hamarraldian Diru Funtsak bere mekanismoak ugaldu zituen, egiturazkoagoak ziren neurrien bitartez. Koro Navarro

2 biologian, aleloez mintzatuz, indibiduo batean kanpo itxuran agertzen ez dena baldin eta harekin doan aleloa dominatzailea bada.

Genetikoki, heterogeneoa da autismoa: batzuetan menderatzailea, beste batzuetan **errezesiboa**. Xabier Olarra

Unai -gene **errezesibo** baten eragina ote? -zoraturik ibilia zen giro etsigarri horretan. Aingeru Epaltza

---

errezesio *iz* jarduera ekonomikoa gutxitzea.

Puntu horri dagokionez, Estatu Batuek ez zuten argudio erabakigarririk falta: aurrenekoa, argi dago, mundu mailako beste **errezesio** batek ez ziola inori onik egingo. Koro Navarro

Inflazioa goitituz eta interes-tasak oso gora bultzatuz, izan ere, dolarraren erortze kontrolgabe batek **errezesioan** murgilduko zukeen Estatu Batuetako ekonomia. Koro Navarro

Japoniar ekonomia, [...], bere finantza-sistemaren egiturazko akatsen mende, **errezesioan** murgildu zen berriz ere 1997aren erdian. Koro Navarro

---

errezeta 1 *iz* eriaren sendabidea adierazten duen ohar idatzia, sendagile baten emana.

Emakume bat zen: **"Errezetarik** baduzu? **Errezetarik** gabe ezin dizut eman". Joseba Urteaga

Errezeta bat emango dizut, eta zoaz farmaziara. Josu Zabaleta

Ez dut jakin nahi nora joango zaren. Baina noranahi dela ere, penizilina hartu beharko duzu zortzi egun lehenago eta zortzi egun geroago. **Errezeta** egingo dizut. Joseba Urteaga

Medikuaren **errezeta** aurkeztea nahitaezkoa da. Berria - Harian

Gaur goizean telefonoz deitu diot, kontsultako laguntzaile horietako batek hartu dit, griperako **errezeta** bat eskatu diot, eta **errezetak** hartzeko goizeko zortzitatik bederatzietara bitartean joan behar dela erantzun dit. Josu Zabaleta

Sararen errehabilitazio programako lagun psikiatrak, bestalde, ongi jakinarazi zidan bere **errezeta**: "Samur jokatu beharko duk, baina gogor, gogor baina samur". Joan Mari Irigoien

Erretzeari uzteko, gaixoei eskaintzen nien **errezeta** bera eskaini nion neure buruari: egunean-egunean zigarro bat gutxiago. Joan Mari Irigoien

Medikuek **errezeta** bidez baino agindu ezin dituzten botikak eta drogak kokaina, heroina eta estasia batez ere erraz eskura daitezke Internet bidez. Berria - Gaiak

Hasieran libretista izan behar zuten; goizean joan eta sendagileak agindutako **errezetak** jaso eta idaztea zuten egitekoa; arratsaldean, botika jaso, banatu eta guardiak egitea. Josu Zabaleta

1991etik 2001era, depresioaren aurkako botika horren **errezetak** asko igo ziren. Berria - Gaiak

EAEko botiketan osasun txartela beharko da **errezetarekin** erosteko. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Munduko bazter guztietako liburutegi eta museoetara joaten zen eta **errezeta** nazkagarriak aurkitu zituen. Karlos Zabala

Gero, ohiko **errezetak** egin nizkion. Joan Mari Irigoien

Medikuntza ez zuen osatuko tradizioen, behaketen eta era askotako **errezeten** multzo batek, baizik eta ezagutzen corpus bakar batek osatuko zuen. Xabier Arregi

3 (hitz elkartuetan)

Hemen ez dizute emango, mediku-**errezetarik** ez baduzu. Mirentxu Larrañaga

· **Errezeta**-taloia hartu nuen. Joan Mari Irigoien

Errezeta-taloitegia atereaz esan zidan: "Ospitale nagusira joango zara". Joseba Urteaga

4 janari bat egiteko osagaien eta prestatzeko moduaren adierazpen zehatza.

Ez dut, ordea, aurkitu bakailaorik gabeko pil-pilaren **errezetarik**. Hasier Etxeberria

-Aizu, errepikatuko al didazu zure postrearen **errezeta** hura? Patxi Zubizarreta

Emakume maratz prestu batez maitemindu zen, zeinak antzar-hestebeteak prestatzeko **errezeta** mendeen mendeetatiko baten jakile baitzen. Juan Garzia

Jakia prestatzen hasia zenetik lehendabizikoz makurtu zen Ruche jauna sukaldaritzako fitxa begiratzera, **errezetak** zioena ondo bete ote zuen egiaztatzeko. Jon Muñoz

5 (izenlagunekin)

Euskal sukaldaritza berriak ederki asmatu izan du, oro har, antzinako **errezetak** gaur egungo jale mokofinen premietara egokitzen. Joxerra Garzia

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mahaikideei kontatu nien nola, 1942 inguruan argitaraturiko **errezeta**-liburu batean, aholku bat zetorren, alegia, egosketaren amaiera aldera, bi tipula xerra sartzeko oliotan. Juan Garzia

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Teorian bederen liburu horiek izan behar dute, izan behar lukete, euskararekin nolabaiteko loturaren bat, baina zer pentsatu salduena ez dakit nongo mojek prestatutako sukalde **errezetak** direla ohartzen garenean? Pello Salaburu

Horieri guzieri gehiturik agertzen delarik Marie Darrieussecq idazlearen xipiroi **errezeta** berezi bat. Herria

San Josep eskolan, ama-eskolako haurrek bisitatu dute Eztigar Donaixtiko kooperatifa eta ondoko egunetan sagar **errezetak** jastatu dituzte eskolan. Herria

Ohiko liburu horietan agertzen diren autore-**errezetak**, funtsean, oso berdintsuak dira, berrikuntza eta abantaila gutxi dakarkigute. Edorta Agirre

8 irud/hed

Ipar Euskal Herriaren funtzionamenduak eta erritmoak errespetatzen asmatzean dago **errezeta**. Berria - Ekonomia

Zein izan da bere **errezeta**? Lana, lana eta lana, alemaniar egoskor ona bezala. Berria - Kirola

Hori guztia dela eta, letren sukaldari xume honek osagai kulinario eta literarioz beteriko **errezeta** bat eskaini nahi lizuke. Patxi Zubizarreta

Euskaldunon literatur entsaladari ere ez letorkioke batere gaizki erabili dituzten eta are erabiltzen ari diren **errezeten** ezagutza. Anjel Lertxundi

Letren sukaldariak jarraitu egingo luke hipotesi horren zientifikotasunaz gogoeta egiten, baina **errezetaren** azken urratsa falta zaiola ohartu baita, hona hemen laugarren eta azken atala. Patxi Zubizarreta

HERRIAk Patxi Noblia zuzendari historikoarekin eskaintzen duen solasaldian ez da mirakuluzko **errezetarik** ateratzen. Herria

Bileran, mahaikideek argi eta garbi utzi zioten une politiko honen lehentasunak «gatazka gainditzeko oinarri sendoak» ezartzea behar duela izan, eta ez «iraganeko **errezetak** errepikatzeak». Berria - Harian

Euskal Herriko gatazka konpontzeko **errezetak**. Pako Aristi

Bitartean, kanpoko duintasuna eta barne dotoretasuna, hori da **errezetarik** hoberena. Patxi Iturritegi

Gizonezko bat jasateaz asper-asper eginda dauden emakumeei euren maitaleaz -senar edo adiskide- libratzeko bide zuzena eta segurua eskaintzen duen **errezeta**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Argi dago Argentinan diziplina handiz ezarri zirela Washingtoneko adostasunaren hainbat **errezeta**: merkatuen desarautzea -bereziki kasino-ekonomia alorrean-, pribatizatzeak, eta diru politikarik ortodoxoena, dolarrari lotu ziotelarik pesoa. Iñaki Heras

Kritikoek diote FMIren **errezetak** askotan kalterako baino ez direla. Iñaki Heras

Horregatik proposatzen dute langabeziari aurre egiteko hartu behar diren neurrien **errezeta** ezaguna: lan merkatua malgutu, bertan agertzen diren oztopoak ezabatuz. Iñaki Heras

Estatuak kontrolatzen duen merkatu nazional baten baitan baino ez omen da Keynesen **errezeta**-liburua erabilgarri. Iñaki Heras

Hango munipek gaurkoan beste zereginik ez nonbait eta, **errezeta** jarri zidaten. Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da errezeta (3); **dago errezeta** (3); **duen errezeta** (3); **errezeta bat** (10); **errezeta batzuk** (3); **errezeta behar** (3); **errezeta bera** (6); **errezeta egin** (3); **errezeta liburu** (7); **errezeta liburua** (3); **errezeta zaharrak** (3); **errezetarik ez** (3); **eta errezeta** (4); **ez da errezeta** (3)

---

errezetalari *iz* errezetak ematen dituena.

Vitruvio ez da **"errezetalari"** bat, baizik eta testuinguru literario-kultural jakin batean txertatzen da koherenteki, komunikazio-modu oso zehatzak erabiliz, Santiago Iruretagoiena

---

errezetaldi ik **errezitaldi**.

---

errezetategi *iz* errezeta bilduma.

Krudela, zeren alusio bat baitzeraman bere baitan, ziur aski faltsua eta nolanahi ere erruki eskasekoa, Barbaricôren **errezetategiak** emakumeari eskura jartzen zion jenero jakin bati buruz. Juan Garzia

---

errezetatu, errezeta(tu), errezetatzen du *ad* errezetaren bidez sendagai bat agindu.

Kontsultara etorriko ote zitzaidan egunen batean, bat-batean, zegokiona baino lehenago, hots, nik **errezetatu** nizkion pilulak agortu aurretik? Joan Mari Irigoien

---

errezetatxo *iz adkor* errezeta.

Bertan behera utzi beharra material hark eskura jar ziezadakeen guztia; idatzi gabeko **errezetatxoen**, organismo horrekiko lanaren inguruko folklorearen ezaupideak ematen duen intimitate gisako horri uko egin beharra; Juan Garzia

---

errezibimendu *(orobat **errezebimendua**) iz* errezibitzea.

Errezibimendua ikusgarriagoa izan zedin, bertzalde, apaingarriz eta edergarriz josi genuen jauregia. Joan Mari Irigoien

Lehenengo egunean, goizetik, bisitariei **errezibimendua** eta ongi-etorria egin genien, biderat ateratzen gintzaizkiela. Joan Mari Irigoien

Esker mila guztiagatik, jaun Martin, egin diguzun **errezibimenduagatik**. Joan Mari Irigoien

Hiru egun iragan ziren bestan, Kubilai Khan Handiak sekulako **errezebimendua** egin baitzien Argonen hiru enbaxadoreei. Aurelia Arkotxa

---

errezibitu, errezibi, errezibitzen du *(ETCn **764** agerraldi, orobat **errezebitu** ETCn **1.107** agerraldi) ad* bidaltzen, ematen, eskaintzen edo heltzen zaiguna hartu edo onartu. ik **hartu**.

Hala erdietsi zian Nafarroa Garaiako erregeordeak har zezan eta **errezibi** zezan. Joan Mari Irigoien

Rachelena zen egoitzaren hirugarren estaian lo-gela bat alokatu zuen, eta han berean **errezibitzen** zituen boterearen eta sosaren arabera hautaturiko gizonak, ar izugarriak zioen eran. Itxaro Borda

Besoak luzatu eta jaisten ari ziren hamabost neskak **errezibitu** zituzten. Matías Múgica

Txartel hauek opera kantariari pasa eta operaren ondoren, kamerino bakoitzaren sarreran diboak **errezibitu** nahi dituenen zerrenda azaltzen omen da. Harkaitz Cano

Xehetasun horietaz hobeki jabetzeko LAB-ek sasoilariak **errezibitzen** ditu bere egoitzan Baionan (Marengo karrikako 13-an) eta Donibane Garazin. Herria

Bai ama hilaren gorpua bildu eta jazterakoan, bai elizkizunak antolatzerakoan, bai bertaratutako senitarteko eta adiskideak **errezibitzerakoan** ere. Txillardegi

Mehaineko bizkondea horiekin batean zegoen, baita Makaiako bizkondea ere, Joanes Beltzuntze, 1568ko otsailean Mauleko gazteluan **errezibitu** ninduena. Aingeru Epaltza

Memoria onekoa naizela eta hori dela Jainkoaganik **errezibitu** dudan dohain bakarretarikoa. Joan Mari Irigoien

Bizkor ibili beharra nuela, kortsario buruak manu haiek **errezibitu** baino lehen. Joan Mari Irigoien

Luze zain egon behar izan genuen, zuzendariak noiz **errezibituko**. Anjel Lertxundi

Ospitaleko pediatria adarrean **errezibitu** dituzte berriki bi tresna berri. Herria

2 (adizlagunekin)

Txokolate hori edan eta, basoa entregatzera, komedorera itzuli nintzenean barre zantzoka eta burlaka **errezibitu** ninduten. Joseba Sarrionandia

Adiskideki **errezibitu** zuten eta, premiazkoak ziren seguritate neurriak zaintzearren, Ivryra zihoan metroan satortu ziren. Itxaro Borda

Maiz ez nintzen neure buruaren jabe izaiten, eta Jainkoaganik ustez **errezibitzen** nituen faboreak eta abantailak bihurtzen zitzaizkidan, finean, desfabore eta desabantail. Joan Mari Irigoien

-Aitasok aberaski **errezibitu** zitinan Pierra eta Cassie anderea. Itxaro Borda

Behiala gorrotatu profeta baten maneran **errezibitu** zuten, hoztasunez eta lotsaz. Itxaro Borda

Energia horiek, iraganeko artistek utzi dizkigutenak, beharrezkoak zaizkit eni kreatzen segitzeko, indar horiek, zuzenki, zafladak bezala **errezibitzen** ditut, utzi dizkiguten lanen medio. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emaitzen errezibitzeko (3); **errezibitu ditu** (9); **errezibitu dute** (8); **errezibitu nahi** (3); **errezibitu ninduen** (3); **errezibitu zuen** (3); **errezibitua izan** (3); **errezibituko dituzte** (4); **errezibitzen ditu** (8)

---

errezibitze *(orobat **errezebitze**) iz* bidaltzen, ematen, eskaintzen edo heltzen zaiguna hartzea edo onartzea.

Errezebitze hortarat gomit dira Ameriketan egonak eta bertzeak ere. Herria

Zerrien **errezebitze** gunetik kamiunetan xerrikiak kargatzeraino. Herria

Jakes Iroume Irulegiko auzapezak **errezebitze** bero bat egin die. Herria

Jaun Apezpikuen **errezebitze** ospetsuak. Herria

Nakok maite zuen baserri hartara urtean bizpahirutan amoinaka hurbiltzea eta amak, erregina bailitzan, Nakoren **errezibitzea**. Itxaro Borda

---

errezibo *iz* ordainagiria.

Errezibo eta lekukotasunak dauzkat hemen: inork ez du lira bat ere ukitu. Koldo Biguri

Bere gainean, ur eta odolez bustitako billete mordoxka bat eta zenbait paper zituen; begiratu ondoren **erreziboak** zirela jakin zuen: joieriakoa, peleteriakoa... Xabier Mendiguren Elizegi

Gero **erreziboa** izenpetuko zuen, eta bezeroari bostekoa eman. Anton Garikano

Ez dut azken sei hilabeteotan **erreziborik** ordaindu. Harkaitz Cano

Haiek bazekiten zeinen gauza ederra den eguneroko argia, eta gu Iberdrolaren **erreziboa** pagatu ondoren ere ez gara ohartzen. Patziku Perurena

Taxiko **erreziboa** gorde du gero, eta hoteleko txartela ere bai. Berria - Kultura

Sartzen zituen, esate baterako, pasatutako loteria-txartelak, zapata-dendetako ordainagiriak, elektrizitate- **erreziboak**. Unai Elorriaga

Ontzietatik gauza ugari botatzen zen, eta mareak arroketaraino ekartzen zituen janari hondarrak, kalendarioak [...] egunkari orriak, inportazio/ esportazio **erreziboak**, eta flotagailu koloregabetuak. Joseba Sarrionandia

---

erreziklaia *iz* birziklatzea.

Gazte borrokalariak, bere bizar, alkandora koadrodun eta guzti, benetan izutu zuen Ane, eta berreziketa edo **erreziklaiaren** ideiarekin ere ez zitzaion irenstekoa iruditu. Xabier Mendiguren Elizegi

---

erreziklatu, errezikla(tu), erreziklatzen **1** du *ad* birziklatu.

Irabazi ugarien zati bat gure bizi-maila hobetzeko erabili genuen, eta beste bat **erreziklatzeko** eta hobekuntzako auto-ikastaroak antolatzeko. Jon Arretxe

Ekialdeko Europatik beraiek ere **erreziklatzeko** eskubidea badutela esan diete kontserbadoreei, eta haien artean ere antzera gertatu zela gogorarazi. Berria - Mundua

Josu Madariaga foru diputatuak nabarmendu zuenez, «datu oso adierazgarria da bildu den kopuru osotik 81.977 tona **erreziklatu** egin direla jakitea». Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Paper **erreziklatuzko** patrikako uztai-koadernotxoan lehen hitzak idatzi ditut: [...]. Harkaitz Cano

Ohartarazi zuenez, horri esker murriztu egiten da harrobietan egin behar den ateratze lana, hortik ustiatutakoen ordez **erreziklatuak** erabili daitezkeelako. Berria - Euskal Herria

---

errezildar *izlag/iz* Errezilgoa, Errezili dagokiona; Errezilgo biztanlea.

1938an, Barañanori txanda Jose Inazio Ibarbia **errezildarrak** hartzen dio. Pello Zabala

Goenaga **errezildarrak** ebaki zuen denetan txukunen, ez zuen asmatu, ordea, abiaduran. Berria - Kirola

Uzcudun, gerora jakin du, Paulino Uzkudun **errezildar** boxeolariaren anaiak sortutako bordaldea da. Iñigo Aranbarri

Aimar Irigoien **errezildar** gaztea harri altxatzaile hoberenen erronkan sartu da. Herria

Besteak beste, Maria Dolores Agirre antzerkigile **errezildarrak** Frankismo garaian izandako bizipenak eta gerora izan duen garrantzia biltzen du Egan-ek. Berria - Kultura

Zabaltzen den oro ez baita urre, eta, askotan bezala, **errezildarrak** arrazoi: zenbat eta gizatxar gehiago elkarren segidan pilatu, orduan eta gizatasunetik urrutiago. Joxerra Garzia

---

errezital *iz* artista bakar baten eginiko musika jardunaldia.

Biharko emanaldia, gainera, **errezitala** izango da. Berria - Kultura

Urtean 40 **errezital** eta 150 kontzertu inguru eskaintzen ditu Savallek. Berria - Kultura

Itsasoaz, zuraz eta oihanaz hitzaldi eta **errezital** andana bat bada. Berria - Kultura

Oraingoz **errezital** batzuk eman ditugu Amsterdam inguruetan. Berria - Kultura

Kantuketan programa kari, Euskal Kultur Erakundeak bertsu **errezital** bat apailatzen du. Herria

21.30 Poesi **errezitala** : Hondarribiko Aritz eta Irungo Pakurekin. Herria

---

errezitalari *iz* errezitatzen duen pertsona.

Bernardo Atxaga idazlea eta Iñaki Garitaonaindia Gari musikaria elkarrekin ariko dira etzi Gasteizko Principal antzokian, *Aitormena* izenburuko ikuskaria oholtzara eramateko Jose Goikoetxea **errezitalari** eta Nando de la Casa musikariarekin batera. Berria - Kultura

---

errezitaldi *(orobat **errezetaldi** g.er.) iz* errezitala.

Kirmen Uriberen letrekin eta Mikel Urdangarinen musikarekin osatutako *Zaharregia, txikiegia agian* kontzertu- **errezetaldia** ikusi ahal izango da larunbat honetan Iruñeko Gaiarre antzokian, Iruñeko Udalak antolatutako Kantu eta Hitza programaren barruan. Berria - Kultura

---

errezitarazi, errezitaraz(i), errezitarazten du *ad* errezitatzera behartu.

Tartean, Axularren *Gero* zegoen, zeina astean behin diktatzen baitzigun eta diktatua **errezitarazten** , euskaraz ongi mintzatzen eta ongi skribatzen ikas genezan. Joan Mari Irigoien

Hala, noiznahi-den errezitatzen zizkigun, edo guri **errezitarazten** , Virgilio edo Horazioren poemak, latinez; edo Villon, Ronsard edo Desportesenak, frantsesez; edo Manrique, Garcilaso eta Joanes Gurutzekoarenak, gaztelaniaz; edo Etxeparerenak eta Oihenartenak, euskaraz. Joan Mari Irigoien

Eskola-garaira atzera eginik, McAllister andereñoak zutik jarrarazten gintuen eta huraxe **errezitarazten** zigun Burns Egunean. Mirentxu Larrañaga

---

errezitatibo *iz* testu errezitatu baten antza duen kantu zatia.

Ekialdeko ortodoxoen jatorrizko kantu liturgikoa *a capella* da, kantu monosilabikoa eta monodikoa, **errezitatibo** eta salmodioetan oinarritua. Berria - Kultura

Genero horretan, ohi den legez, ez dago korurik, eta bakarlarien artean zabaltzen da kantaldia: **errezitatibo** , aria, cavatina, duo, trio, laukote, boskote eta azken eszenetan seikote. Berria - Kultura

Barrokoaren itxurari jarraituz, abeslariek opera bufoak zituen etengabeko **errezitatiboei** , aria da capo-ei, caballeta laburrei bata bestearen atzetik aurre egin behar zieten, concertateak ekitaldien azkenerako utziei. Berria - Kultura

---

errezitatu, errezita(tu), errezitatzen du *ad* literatura testu bat, eskuarki poema bat, goraki esan.

Zalantza hartan joan zitzaizkidala minutuak harik eta Dylan Thomasen poema ospetsua -"aita, ez zaitez otzantasunez sartu gau isilean"- aipatu nion arte; edo aipatu baino gehiago, **errezitatu** , erdizka. Bernardo Atxaga

Aita irakaslea eta poeta zen, eta semeari, txiki-txikitandik, ingeles poeta handien bertsoak **errezitatu** ohi zizkion. Koro Navarro

Amonarengana joan zelarik, Adjib negarrez hasi zen, eta, hasperen sakon bat egitearekin batera, poema hau **errezitatu** zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

---

errezitatzaile *iz* errezitatzen duen pertsona.

Errezitatzaile errespetugabearen ondoan zeudenak barrez hasi ziren, eta gainerako ikasleek zaratatsuen talderantz begiratu zuten. Josu Zabaleta

Herri literaturako istorioen, ipuinen, gertakarien eta kondairen biltzaile eta kontu- **errezitatzaile** liluragarria izan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gaur bederen, *Nuyorican Poets*eko **errezitatzaile** gehienak beltzak dira eta sexua, politika eta eguneroko gai arrunt eta urbanoak lantzen dituzte ia beti. Harkaitz Cano

Egun haietan zeinetan atezain bizartsuek, gerezi koloreko tunikaz, ilarrak aletzen baitzituzten zilarrezko plater batean, landetxeen sarrerako mosaiko galaitsuen aurrean, [...], zeinetan **errezitatzaileek** azkenburukoetan poema epikoak kantatzen baitzituzten. Juan Garzia

---

errezitazio *iz* errezitatzea.

Errezitazioa amaiturik, Friedrich Hölderlin (1770-1843) idazten du arbelean. Anjel Lertxundi

Isildu egin da Leandro, eta **errezitazioa** bukatu zela pentsatzen nuelarik, hara non neska batena bezalako ahots fin batek segitu dion Romeoren jardunari, oraingoan Julietarena egiten. Anjel Lertxundi

Testu bat buruz ikasten bada, bere **errezitazio** bakoitza enuntziatu bat al da ala enuntziatu beraren errepikapena dela kontsideratu behar da? Xabier Arregi

---

errezitentzia ik **erresistentzia**.

---

errezkada ik **erreskada**.

---

errezo *(orobat **errezu** g.er.)* **1** *iz* otoitza; errezatzea.

Aditu ziren, ostera, kexuak eta **errezoak** , inoiz baino sarriago, ekaitzaren eraginez dena atzeratu behar izan zelarik, askok esan baitzuten ontzia madarikaturik zegoela. Edorta Jimenez

Bete du bere hitza egunero, santuari argizaria piztu eta **errezoak** eginez. Pako Aristi

Taibeleren sabela itxi egin zen, eta ezerk ezin izan zuen hura gehiago zabaldu: ez **errezoek** , ez aztikeriek, ez edabeek. Koro Navarro

Jartzen zen belauniko Jesusen Bihotzaren aurrean, [...] eta bere **errezoak** egin ondoren, garai bateko alaitasunik gabe sartzen zen maindirepean. Josu Zabaleta

-Ez ziok ba aitari eskatu Bartolome Izetaren lekuan **errezoak** berak egin nahi dituela? Edorta Jimenez

Ijitoen **errezoa** zirudien hark. Xabier Aranburu

Iluntzeko **errezoaren** ordua zenean. Koro Navarro

Agur maria esanez ekin zion **errezoari** , berak bakarrik. Edorta Jimenez

Bekatu larrien zama astuna ez zen kitatzen abemarien eta paternosterren **errezoekin** soilik aita Franciscoren ustetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bururatu zitzaion erromes madarikatu baten gisa Errusiako lurraldeetan monasterioz monasterio **errezoetan** ibili beharko zuela geratzen zitzaion bizitza tristea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Etortzen zen anaien multzo handiagatik, bertakoek tokirik gabe gelditzen ziren atseden hartzeko eta orduen **errezoa** egiteko. Askoren artean

Goizeko **errezorako** bilduta zeudenean jo zuen erasoa Armadak. Berria - Mundua

Herritar sunitek ere euren haserrea erakutsi zuten atzo, eta ostiraleko **errezoak** egin ondoren elkarretaratzeak egin zituzten meskitetan. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Frantziskoren aurretik ere (Karlomagnoren garaiaz gero segur aski) ohikoa zen, **errezo** ofizialez gain, ofizio eta brebiario pribatuak errezatzea. Askoren artean

Errezo labur bat eginda, uretara jaurti genituen, eta itsasoa baretzen orduantxe hasi zen. Edorta Jimenez

Hi eta biok han, **errezo** azkengabeak errezatzen, berak ezer entzuteke. Juan Garzia

Sarritan ikusten ziren arabiarrak hirian, erosketatan eta egunean hainbat bider **errezo** arraroak eginez. Xabier Aranburu

Han zegoen aita Francisco Romero sutsua aitormen-etxo-an, bekatu larriren bat egin zuen edonori abemarien eta paternosterren artean kafe-landare bat edo beste landatzeko penitentzia emateko, ez baita bekatuen barkamena abemaria eta beste hainbat **errezo** lehorrekin amaitzen ekonomia ondo ulertzen denean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haurrak etxera eraman orduko, ilunabarreko **errezoa** presaka egin eta ohera joaten zen Alchonon. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Igogailua solairu guztietan gelditzen zen, eta ate irikietatik andregai bat ikusi nuen eztei soinekoa jantzita erretratatzen ari zirena, yeshivako mutilak **errezo** liburuak eta xalak maletetan sartzen. barre algarari ezin eusteko zorian egon zen notarioa, ahots oraindik indartsu baina **errezo** kutsukoaz, azeri zaharraren diskurtso loratua irakurtzen entzun zuenean. Koro Navarro

Karrozako anderea eta bere neskamea, mila **errezo**-opari eskainka ari ziren Espainiako otoitz etxe eta imajina guztiei. Patxi Ezkiaga

Garitate deitzen zioten orduko **errezo**-jenero horri; bai, *garitate*, garien garai itxaropentsuena orduantxe egokitzen zelako parean. Pello Zabala

Dolu-gelan bildutako jendearen **errezo**-marmarrek kaleko ardaila estaltzea lortzen badute ere, [...]. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizakien arteko benetako kontaktua presentzia isilaren bitartez baizik ez dela lortzen dio Cioranek, komunikaziorik ezaren itxurapean gauzatzen dela, barne **errezoa** dirudien truke misteriotsu eta hitzik gabekoaren bitartez. Imanol Zurutuza

5 ***errezoan*** *adlag* errezatzen.

Arrosarioa esku artean zuela ikusi zuen Jexuxek, **errezoan**. Xabier Etxabe

Eserlekuan uzkurtuta, **errezoan** zirudien, ahapeka. Hirurogeita hamar urte inguruko emakumezko bat ikusten zuen eserlekuan uzkurtuta, lehen hegaldiaren beldurra ezkutatu ezinik, **errezoan**, ahapeka. Imanol Zurutuza

Ondorioz, «ni bekatari» errezatu baino, alderdi guztiak «zu bekatari» **errezoan**. Berria - Kirola

Hegazkineko eserlekuan uzkurtuta, **errezoan** irudi, elkarri ia aurpegira begiratu ere egin gabe elkarren ondotik igarotzen ziren gizakiez gogoeta egiten. Imanol Zurutuza

-Espainia Berriaren ikuspuntuak gogoan harturik - **errezoan** legez ekin nion- izen-abizenez aipaturik datozen hurrengo pertsonen afiliazio politikoa eta horiek duten arriskua azaltzen da, arrisku horren kausak adierazita. Edorta Jimenez

---

errezoera *iz* errezo mota.

Garizumako **errezoera** propialak, Pazkoraino irauten zuen hobe beharrean: Pazko-goizean kalbarioak esaten zituenak laurehun arima Purgatoriotik ateratzen zituela esaten zen. Pello Zabala

---

errezoka *(orobat* ***errezuka****)* *adlag* erretzatzen.

Aitarenka edo **errezuka** jardutea, ez da igoeretarako behar besteko arrazoia. Berria - Ekonomia

Errezatu egin nuen, zeruak ere nekatu nituen **errezoka** lasterrago jaits zedin. Koro Navarro

Beren lehen saioa egina zuten, eta ez ziren noski Amabirjinari **errezuka** aritu. Joxerra Garzia

---

erreztasun ik **erraztasun**.

---

erreztun ik **eraztun**.

---

errezu ik **errezo**.

---

errezuka ik **errezoka**.

---

erriada *iz* ibai baten emariaren hazkunde bortitza. ik **uholde**.

Ez nuen funtsezko lanik egin hartan, amanteroari errieta ematen aritu nintzen goiz osoan, kargak zakar jasotzen, **erriadak** premiarik gabe bizitzen, zama kolpeka uzten nuela moilan, kargaldi guztiak jarraian, konbinadorearen gainean kakolduta. Koldo Izagirre

---

errial ik **erreal**[1].

---

erriatu, erria(tu), erriatzen du *ad* banderez eta kidekoez mintzatuz, eraitsi, jaitsi.

Klasea amaitutakoan bandera **erriatu** eta biltzeko agintzen digu maisuak. kanpamenduko buruzagiak ziztu luze bat egin zuen aurrena, gero hiru labur, kapilauak soka askatu eta piperpotoa bien artean **erriatzen** hasi zirelarik. Koldo Izagirre

Mesanako belaren jaisterat eta **erriatzerat** joan nintzen. Joan Mari Irigoien

Gero bela **erriatu** zuen, baina haizeak kontrako ertzerantz eraman zuen. Julen Gabiria

2 irud/hed

Halako batean, alboko ontzitik txalupa bat **erriatzen** zihardutela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

erribera *iz* itsasbazterra, itsasertza; ibaiertza, ibai-bazterra.

Leihoaren beste aldean **erribera** eta itsasadarra, haratago Naja geltokia. Sonia Gonzalez

Gero zaldunak eta ezkutariak Zaragoza aldera egiten dute, Ebro ibaiaren **erriberak** ikusi nahi baitituzte. Patxi Ezkiaga

Ebek itsasoa ikusi nahi zuen leihotik eta **erriberara** joan ginen bizitzera, itsasoa ez bada ere, ur zikina baino ez bada ere. Sonia Gonzalez

Baranda azpiko ur ilunetatik itsasadarraz bestaldeko **erriberara** eraman ditu begiak. Paddy Rekalde

Deustuko **erriberan** lehorreratu eta Ibarrekolandakoan lurperatu zuten gauez. Paddy Rekalde

La Vieja sartu da Nerbioi **erriberan** oinak ur beltzetan, loreak baineran mozkortzen nauzu ta ezin zaitut edan. Paddy Rekalde

Haltzari dagokionez, ibai ondoko **erriberetan** hazten den eta ezertarako ez dela dirudien arren, oso ezaugarri ederrak ditu. Santiago Iruretagoiena

Herri txiki batean dena jakiten da; Ireneori, **erriberetako** bere basetxean, laster iritsi zitzaion liburu ezohi horien berria. Juan Garzia

Erran zuen, halaber, haraindiko **erriberan** Hilezkorren Hiri garaia aurkitzen dela, babestarriz eta anfiteatroz eta tenpluz josia. Juan Garzia

Baita Nafarroako **erribera** arabiar kutsu zaharrekoan ere. Patziku Perurena

Haltzari dagokionez, ibai ondoko **erriberetan** hazten den eta ezertarako ez dela dirudien arren, oso ezaugarri ederrak ditu. Santiago Iruretagoiena

---

erriberar *iz* erriberako biztanlea.

Nafarroan, urte askotan, **erriberar** honen koadroekin lotu zen, ezinbestez, pintura. Berria - Kultura

---

erribonukleiko

1 ***azido erribonukleiko*** proteinen sintesian parte hartzen duen eta informazio genetikoa bideratzen duen azido nukleikoa.

Izan ere, molekula horietatik erribosa sor daiteke, azido **erribonukleikoaren** (ARN) eta azido desoxirribonukleikoaren (ADN) oinarria. Berria - Gaiak

---

erribosa *iz* zenbait azido nukleikoren osaeran parte hartzen duen karbono hidratoa.

Izan ere, molekula horietatik **erribosa** sor daiteke, azido erribonukleikoaren (ARN) eta azido desoxirribonukleikoaren (ADN) oinarria. Berria - Gaiak

---

erribosoma *iz* zelularen zitoplasmaren pikorra, proteina batek eta azido erribonukleikoak osatua, proteinen sintesian esku hartzen duena.

Proteinen polimerizazioa, hainbat egitura osatuz, hala nola giharraren proteinak, zitoeskeletoa, **erribosomak**, birusen kapsideak. Juan Garzia

---

erridau *iz ipar* errezela, gortina.

Oihal larriz eginikako **erridau** bat baizik ez zen logela beste barnetik berexten zuena. Janbattitt Dirassar

Botigaren zolan, dilindan, kolore gabeko **erridau** bat. Michel Oronoz

Iduritu zitzaion gizonari, pareko etxebizitzaren laugarren estaiako leiho baten gibeleko **erridaua** mugitzen zela. Ramuntxo Etxeberri

Erizainak estalkia ongi ezarri eta, **erridaua** tiratzen du, gela ilunpean izan dadin. Ramuntxo Etxeberri

Jendeari gomendatua zaio soberakin lituzkeen jantzi, mihise, mahai gaineko, zerbita eta **erridauak** biltzea, eta ezartzea ondarkin zaku batzuetan. Herria

Baina guztia hasi aitzin, **erridauak** Miarritzeko baletak irekiko ditu. Berria - Kultura

Etxahun Barkoxe olerkariaren herrian irekiko dituzte jaialdiaren **erridauak**. **Erridau** xaretuek ozta-ozta uzten zituzten sartzera kaletik zetozen argi-izpi nagi batzuk. Berria - Kultura

Zurda zurruneko eskuila eta baldea lurrean utzi eta soka bati tiraka altxatu zuen zaldi-karrusela estaltzen zuen loneta, antzoki biribil bateko **erridaua** bailitzan. Harkaitz Cano

---

erridautxo *iz ipar* erridau txikia.

Besoa luzatuz, Mikelek errazki altxatzen ahalko zuen plastikozko **erridautxoa**. Ramuntxo Etxeberri

---

erridikulizatu, erredikuliza, erredikulizatzen du *ad* irrigarri utzi.

Gero, mila aldiz parodiatua zein **erridikulizatua** izan den zerbait egiten nuen: orri zuri bat hartu eta bere izena idatzi. Bernardo Atxaga

Erridikulizatu ere sarri egin da, kursilerien generoa delakoan; edo kondenatu, ulergaiztasunaren erruz. Ana Urkiza

---

erridikulo ik **erridikulu**.

---

erridikulu *(orobat* ***erridikulo*** *g.er.)* **1** *izond* irrigarria, burla eragiten duena.

Bideoaren pantailaxkan ikusarazi didaten ilunabarraren errepikapen **erridikulua**. Patxi Zubizarreta

1947. urtean enpresako bere partea saldu egin zuen -egoera ikusita jaso zezakeen diruaren zati irrigarri eta **erridikulu** bat bakarrik jasota-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Amodio gutun guztiak dira **erridikuluak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aldi berean, **erridikulua** zen eta bazuen zerbait hunkigarri "fedea" galtzen ari zen Txokorentzat. Itxaro Borda

Banekien zentzugabea zela, **erridikulua** guztiz, baina Lauaxetarekin egoteko gogoa sentitu nuen. Juan Luis Zabala

Erridikulua iruditu zitzaidan zu bezalako mozolo batek hainbeste buruhauste sortu izana, tamalgarria. Eider Rodriguez

Egia esan, inoiz ez ditut oso gustuko izan super-heroiak, **erridikulu** samarrak iruditu izan zaizkit beti. Berria - Kultura

Aitak halako solemnitate kasik **erridikuluarekin** hitz egin ohi zuelako. Iban Zaldua

2 (izen gisa) egoera edo jokaera erridikulua.

Lotsa eta **erridikulua**. Joseba Sarrionandia

Mikrouhin labean katua lehortu nahi izatea; dirua eduki, eta ordaintzerik ez izatea; bi pisuko autobus batean turista ibiltzea; amodioan sinestea; horra **erridikulua** zer den. Patxi Zubizarreta

Hamar segundo behar izan zituen lau hitz horiek josteko, bere egoeraren **erridikuluaz** jabetzeko. Unai Iturriaga

Autobusean neure burua hain barregarri ikusirik, konturatu gabe gogoa Gasteizeraino joan zait, seguruenik hantxe eta, hain zuzen ere, autobus batean, sentitu nuelako nire bizitzako **erridikulurik** handiena. Patxi Zubizarreta

Oximoron Leibnizbarrutiaren gaineko exegesia paroxismoraino luzatu dute, **erridikuluaren** eremura sartzeraino. Jon Alonso

3 (adizlagun gisa)

Une batez **erridikulu** samar aurkitu zuen bere burua hantxe. Joxemari Iturralde

4 ***erridikulua egin***

Erridikulua egiteko beldurra barne-barneraino errotzen den gauza bat da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta gaur, behinik behin, ez zaigu harremana apurtu eta, **egindko erridikulua** gorabehera, nik uste baino hobeki egon naiz. Patxi Zubizarreta

Tira, saiatu beharko gaituk, bestela **erridikulu** izugarria **egingo** diagu-eta. Joxemari Iturralde

· Iruinen hitzetan, instrukzioan akusazioari eusteko benetako oinarririk ez dagoenez, «Guardia Zibilaren usteak, interpretazioak eta irakurketa okerrak» besterik ez daudenez, ahozko epaiketan **«erridikulu** handia **egiteko** benetako arriskua du» fiskaltzak. Berria - Harian

---

erridimitu, erridimi(tu), erridimitzen du *ad* berrerosi; libratu.

Zeren mundu honetan sufrimenduak erredimitzen baikaitu eta ene seme bastartek ene seme lejitimoa **erridimituko** baitute, sufrimenduaren bidez. Joan Mari Irigoien

Sakrifizio hura probetxuzkoa izanen zitzaiolakoan bere semeari, purgatorioko penen **erridimitzeko**. Joan Mari Irigoien

---

errient *(orobat **erreint** eta **errejent** eta **errexent**) iz ipar* eskola maisua.

Ordu arte Herriko Etxean zeuden eskolak, alderdi batean mutikoenak, maisu edo **errient** batekin, eta bestean aldiz nexkatoenak, errientsarekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Apeza edo **errient** jauna, errespetatu beharko. Herria

Herri hartako **errientak** eta apezak nahi zuten kolegioan jarrai nezan, baina Prudentziok ez zuen sosik aski eta eskualdeko arotz baten lantegira igorri ninduen, mutil. Itxaro Borda

Hi grina hadi eskola bat izan dadin herrian eta **errientak** frantsesa jakin dezan. Elena Touyarou

Azken zortzi hilabete hauetan, Sophie Larrandaburu **errientaren** gidaritzapean Jesüs pastoraleko joko zatiak ikasten aritu diren 50 neskak eta 17 mutikoak nahiko ondo aritu ziren. Berria - Kultura

Handik bizpahiru egunen buruan, Narbaitz Behauzeko **errienta** heldu zait ikustera. Marzel Etxehandi

Segur, eskolako **errientak** holako ikastaro luze eta zehatza egin balu, ez zuela arrakesta haundirik ukanen eta aspaldidanik okaztatuak edo lokartuak izanen zirela haren ikasleak. Michel Oronoz

Segidan banoa erromesen aterpe bilakatu den **errienten** egoitzara. Piarres Aintziart

Donibane Lohizunen,duela berrogoi urte sortu zen Leo-Lagrange elkartea, bi **errient** sustatzaile beren lagun zonbaitekin. Herria

Eta denen gidari hor zuten Alain Martineau, eskolako **errient** musikaria. Herria

Gizonek mendeku lana mututasunik hotzenean bete zuten, Luc CGTko ordezkari eta Marc Naonedeko **errient** lanean hasi berriak gogoan. Itxaro Borda

Geroztik, **errient** denbora guzia hemen bete du, ber denboran auzapez kargua eramaiten zuela ainitz urtez. Herria

· 36 urte eskola girixtinoko **errient** pasaturik, erretreta hartu du Mayi Darraidou andereak. Herria

---

errients ik **errients**a.

---

errientsa *(orobat **errients** eta **erreints** g.er.) iz ipar* eskola maistra.

Izaskun **errientsa** musikaz ere arduratzen da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Marie-Gabrielle mutxurdina zen, lehen **errientsa** izana eskola libroan. Michel Oronoz

Luzaz **errientsa** egona Mugerren. Herria

Ene lehen oroitzapen intelektualak herriko eskola laikoan sortu zaizkit, **errientsa** miresten bainuen eta maite. Piarres Aintziart

Ordu arte Herriko Etxean zeuden eskolak, alderdi batean mutikoenak, maisu edo errient batekin, eta bestean aldiz nexkatoenak, **errientsarekin**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Alabainan, Saran abiatu zen 1983an eskola publikoetako lehen gela elebiduna, Aña Mari Curutchet **errientsarekin**, Leralu eta Lichau andereek bultzaturik. Herria

Beharbada, eskolako lehen egunetik haste, **errientsa** larderiatsuak Louise edo Thèrese izendatu zituenean jende sentitu ziren. Itxaro Borda

Errients bipil hartaz mintzo ziren denak. Herria

Apez xahar batek **errients** katoliko batek errana errepikatu dit ez hain aspaldi. Piarres Aintziart

Bera bizi izan zen Luzaiden, emaztea eta haurrak Iruñen egonez, ezen hiri horretan zuen María Felisa-k bere **errients** edo erakasle postua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Goresmenak bi herrietako haur horier eta horien moldatzaile diren **erreintser**, bizi dadin euskal kantua. Herria

---

errierta ik **errieta**.

---

errieta *(orobat **errierta** g.er. eta **errita** g.er.)* **1** *iz* liskarra, aharra, etxekoen edo auzoen arteko borroka edo eztabaida bizia. ik **sesio**[1].

Uholde baten antzera amildu zitzaizkion gainera galderak, mehatxuak, **errietak**, kargu-hartzeak, gaitzespenak eta irainak. Jose Morales

Nik uste nuen banekiela zer zen **errieta** hartzea. Entretenimendu ezin hobea, jakien zain egoteko, **errietak** eramateko, gurasoen jardunaz beste egiteko. Joxan Elosegi

Haiek **errietak** geltokiko arduradunarenak! Juan Kruz Igerabide

Zorionekoa berehala aitzakiak ateratzen ez dituen zerbitzaria, baizik eta errugabe izanik ere bekatuaren lotsa eta **errieta** apalki eramaten dituena! Askoren artean

Haien ustez, Garrotak eta emazteak **errieta** bat izan dute; senarrak palaz buruan jo du; emazteak leihorantz jo zu, laguntza eske, eta orduan, senarrak, gerritik heldurik, kalera bota du. Josu Zabaleta

Andresi dagokionez, maitasun bizia zion anaia txikiari, bazien nahitasuna Pedrori eta Margaritari, baina beti zituen **errietak** arrebarekin, mespretxua zion Alejandrori eta ia gorrotoa aitari. Josu Zabaleta

Ahaleginak eta bi egin behar izaten ditut haren **errietei** eta aholkuei ihes egiteko eta ez entzuna egiteko. Josu Zabaleta

Aitaren **errietek**, nire iritziak pitzatu beharrean, kontrako efek-tua eragiten zidaten: orduan eta alemanago sentitzen nintzen. Anjel Lertxundi

Ni hain nago ohituta non amaren **errietek** ez baitidate zirkinik eragiten. Josu Zabaleta

Imanolek etxera garaiz heldu nahi zuelako, gurasoen **errietaren** beldurrez. Iban Zaldua

Ez nuen **errietarako** gogorik. Aingeru Epaltza

Errietarako aitzakiarik ez emateko, itxarotea erabaki nuen. Ramon Saizarbitoria

Aurtengo maiatzean Arartekoaren **errieta** entzun behar izan zuen, zaharrentzako zerbitzuen eskaintzaz egindako txostenean. Berria - Harian

Handik urrunago beste bat zulatu zuten, baina ez zen oraingoan **errietarik** sortu. Elizen arteko biblia

Lorontzi bat puskatu ondoren **errietatik** libratu nahi duen haur batek bezala begiratu zidan. Anjel Lertxundi

Costarekin topo egitea ez zitzaiola laketuko pentsatu zuen, berarekin mintzatu behar izatea, entzutea, **errietazko** begirada jasan behar izatea. Jon Alonso

Nire bigarren gutuna, **errietazkoa** baino, adore ematekoa zen, baina gutunazala ireki gabe itzuli didate. Ramon Etxezarreta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Aspaldiko ahots-tonua azaldu da berriro, beren ezkonbizitzako azken urteetako tonua: **errieta** biziarena. Oskar Arana

Deere jauna barrez jardun zuen, lagun bien **errieta** txikia ikusiz. Karlos Linazasoro

Bekatariak **errieta** zakarrez baino gozotasunez hobeto ekartzen dira Jainkoarengana. Askoren artean

Are **errietarik** garratzenaren ondotik ere, guztiek sumatzen zuten halako adore berezi bat eta halako irrika bizi bat eginiko hutsak eta okerrak zuzentzeko. Jose Morales

Azken hitz hauen zatarkeria ez da bat etorriko **errieta** moralizatzailearen tonuarekin. Jon Alonso

Mespreza itzazu ama ergel baten **errieta** txepelak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez izan **errieta** zentzugabeen beldurrik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sekulako **errieta** bota zioten. Josu Zabaleta

Jainkoaren gizonak debekatu egiten zizkien gehiegikeria horiek, aholku-hitz gozoz eta zentzuzko **errietaz**, eta anaien zauriak argibide zuhurren sendagaiez lotzen zituen. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Ikus gaitzazuen", **errieta** kutsua duen leloa da: e! aizue, hemen gaudela, edo horrelako zerbait. Txema Ramirez de la Piscina

Hanna goxoagoa da tratuan; **errieta**-zantzurik ere ez du agiri orain, niri begira. Joxe Austin Arrieta

Aitak, ateratzen zen aldiro, sukaldeko mahai gainean **errieta**-ohar luzeak uzten zituen. Fernando Rey

"Egongo al zarete geldi behingoz!", bota die ama batek bere aurretik lasterka eta estropezuka igaro diren mutiko biei, **errieta**-itxurak eginez baina benetako haserrerik gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Errieta doinuarekin, Larraitzek: [...]. Pablo Sastre

Garbi esan behar dizut, zazpi ahalak egiten ditudala lanetan laguntzeko, eta besteekin atsegina eta ona izateko, era horretara **errieta** zaparradak xirimiri bihur daitezen.Bitartean, **errieta**-emailearen oharkabean, haren bularra dardarika ari zitzaidan, neskaren mintzoari erritmikoki lagun eginez. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Laugarrena izanen zen, eta aski nuen emakume-**errietaz**-. Aingeru Epaltza

Zigorrada bakoitza aholku-**errietaren** batekin osatzen zuen, honela baitzioen: [...]. Patxi Ezkiaga

5 *errietan adlag* errieta egiten.

Ama negarrez eta aita **errietan**. Jesus Mari Mendizabal

Parkean egin zuten topo eta emazteak senarrari tiro egin aurretik hitz egiten jardun omen zuten, hitz egiten baino gehiago **errietan** edo elkarri egundokoak esaten. Joxean Agirre

Tabernako nagusia **errietan** etorri zen, esanez edontziak garesti kostatzen zirela, eta gelditzeko. Josu Zabaleta

Jefea idazkari batekin hizketan, edo **errietan** hobe. Xabier Mendiguren Elizegi

Biltegitik iristen zen Zerkowitz saltzailearen ahots koipetsua, norbaiti **errietan**, salgai-bilduma bat oraindik ez zegoelako prest. Anton Garikano

Ron eta Hermione Magiaren Historiako eskolara abiatu ziren, **errietan**. Iñaki Mendiguren

Errietan hasi zitzaidan, ordea, eta galderak egiten, poliziak baino zorrotzago, erabat gorrotagarri: non ibili nintzen bezperan, zertan, norekin. Anjel Lertxundi

Aspaldian ez zitzaidan hau zela eta hura zela **errietan** etortzen, ez zen gurekin haserretzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Neska **errietan** ari da txakurrarekin. Alberto Barandiaren

Goian **errietan** ari zaizkit denbora guztian. Josu Zabaleta

Bazirudien Nevillek liburu-zerrenda galdu zuela, eta bere amona, itxura beldurgarria zuena, **errietan** ari zitzaion. Iñaki Mendiguren

Goizean etxera etorri zen gizon kapeladuna ezagutu nuen norbaitekin **errietan**. Anjel Lertxundi

Erdi farrez, erdi **errietan**. Anton Garikano

· Hizketaren tonua gero eta gorago igotzen zen, **errieta** bizian amaitzeraino. Juan Kruz Igerabide

Aitona **errieta** txikian hasten zait: "Tuntuna; ez duzu ikusten zure aitona naizela?". Anjel Lertxundi

Ama sukaldean aurkitu dut, arraina zartaginean jartzen, eta sartu naizenean erdi **errietan** hasi zait, ea zer aurpegi diren horiek eta ea noiz altxatu behar dudan gogoa, eta horrelakoak esaten. Lander Garro

6 *errieta egin*

Zorionekoa, **errieta egiten** zaionean otzanki onartzen, lotsaz men egiten, apalki aitortzen eta gogo onez zigorra betetzen duen zerbitzaria. Askoren artean

Liburuan barrena, Saizarbitoriak **errieta egiten** die abertzale itsuei, **errieta** ustezko antiabertzaleei, eta, oroz lehen, bere buruari. Markos Zapiain

Jostundegiko arduradunak bizpahiru aldiz egin zidan **errieta** neurriak gaizki hartzeagatik. Anjel Lertxundi

Frantzisko berehala damutu zen esandakoaz, anai Jakobori **egin** zion **errietan** legendun hura lotsarazi zuen ustetan. Askoren artean

Jai hori denek jainkozko begiramenez ospatu behar zutela-eta emakume noble batek gogor **egin** zion **errieta**. Askoren artean

Umeei bezala **egiten** dio **errieta** komunitate nazionalistari, «legerik gabekoen kultura» sortzeagatik. Berria - Mundua

Oso gogor **egin** zion **errieta** anai Juniperori. Askoren artean

Seminarista haietako baten aurrean gure ama kasualitatez mahuka-hutsik agertzen bazen, gogorki egingo zion **errieta** osaba Xabierrek. Mikel Hernandez Abaitua

Maltzurra zela [...] **egin** zion **errieta** Eugeniak. Ramon Saizarbitoria

Den-denaz **egingo** zuen **errieta**: garbiketa ontziez, arropa zabaltzeko sokez, ur ponpaz. Koro Navarro

-Kontuz aizak! -xuxurlari egin dio **errieta** Mikelok, izuak irentsi beharrean. Urtzi Urrutikoeetxea

Errusieraz birao egiten ere ez dakite eta, horrenbestez, frantsesez **egiten** dute **errieta**. Jose Morales

Anniek ahots apalez egin zion **errieta**. Koro Navarro

Jendarteko fariseu batzuek esan zioten Jesusi: - Maisu, **egiezu errieta** ikasleei! Elizen arteko biblia

· Amak **errieta** txikia **egin** zion aitari mahaia bedeinkatu baino lehen jaten hasteagatik. Anjel Lertxundi

Hari ere **errieta** eta irain **egingo** ziotek mirabe gazteek lurralde urrunetan. Juan Kruz Igerabide

-Lasai, lasai! -esan zuen Louk-, ez **errietarik** egin, txintxoak izan. Koro Navarro

-Heroi handi hori: ez egin **errietarik** alaba zintzoari. Juan Kruz Igerabide

Zori hutsez gertatuko al da aitak eta amak Margoti inoiz **errietarik** ez egitea, eta ni izatea beti gauza guztien errua dudana? Josu Zabaleta

Ez zuten **errieta** askorik egiten, denbora asko pasatzen zuten isilik, baina horrek ondo konpontzen zirela esan nahi du? Anjel Lertxundi

Egiten dizkidaten **errietak** umorez hartzen ditut gehienetan. Josu Zabaleta

7 *errieta eman*

Errieta ematen hasi nintzaion. Inazio Mujika Iraola

Haren zaintzaile zorrotzak **errita eman** zionean, dotrina-gorputz baten bila zebilela argitu zion. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amak errieta (3); **antinook errieta** (3); **antinook errieta egin** (3); **baina errieta** (3); **buruari errieta** (3); **du errieta** (3); **egin zidan errieta** (3); **egin zion errieta** (8); **ere errieta** (4); **errieta egin** (96); **errieta egin behar** (4); **errieta egin dio** (3); **errieta egin eta** (3); **errieta egin nien** (3); **errieta egin nion** (3); **errieta egin zidan** (3); **errieta egin zidaten** (3); **errieta egin zien** (7); **errieta egin zion** (36); **errieta egin zioten** (3); **errieta eginez** (10); **errieta eginez bezala** (4); **errieta egingo** (15); **errieta egingo dit** (3); **errieta egitea** (4); **errieta egiteko** (9); **errieta egiten** (53); **errieta egiten eta** (4); **errieta egiten zidan** (5); **errieta egiten zien** (3); **errieta egiten zion** (7); **errieta egitera** (6); **errieta eman** (10); **errieta eman zion** (4); **errieta emateko** (5); **errieta ematen** (19); **errieta ematen hasi** (4); **errieta eta** (4); **errieta guztiak** (3); **errieta txikia** (3); **eta errieta** (26); **eta errieta egin** (4); **eta errieta egingo** (4); **eta errieta egiten** (8); **eta sekulako errieta** (3); **frantziskok errieta** (3); **sekulako errieta** (7); **sekulako errieta egin** (3); **zidan errieta** (3); **zion errieta** (9); **zuen errieta** (3)

---

errietaka *adlag* errietan, errieta egiten.

Orduko hartan ere amonari egia aitortu behar izan nion, eta hark **errietaka** ez, baina laztanka hartu ninduen, irriño batekin hurrengoan kontu handiagoz ibiltzeko esaten zidala. Patxi Zubizarreta

Orain berriz ni naiz mizkinei **errietaka** ibiltzen dena, beti atzetik, jantzazue ta jantzazue, amatxoren tokia hartuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Agerian ikusten dituk gortea egiten nahiz **errietaka**. Patxi Zubizarreta

---

errietalari *izond* errieta egiten duena.

-Saldu egin dik edatera joateko -esan zuen Gwilymek bere ahots **errietalari** sakonenean, zeruan finko begiak-. Koro Navarro

---

errietaldi *(orobat **errieta aldi** g.er.) iz* errieta egiten den aldia.

Bihurrikeriaren bat egiten genuen bakoitzean amak bere **errietaldian** osaba ekartzen zigun gogora. Xabier Mendiguren Elizegi

Errietaldia jaso zuena ni neu izan nintzela, eta harrezkero nahiago izaten nuela oinez edo autobusez ibili, kasik gidatzea ahanzteraino. Patxi Zubizarreta

Gure aitak sekulako **errietaldia** egin zuen Albertok ezkondu behar zuela iragarri zuenean. Fernando Rey

Gaineratu diot lagunak pena handia hartu zuela, baina are penatuago -eta harrituago- geratu zela senarrak egin zion **errietaldi** lekuz kanpokoarekin. Patxi Zubizarreta

Eguna **errieta aldia** izaten da, gauean, ordea, iskanbila izan duenak Maitasuna topatzen du berriro. Josu Zabaleta

---

errietatsu *izond* errietaz betea.

Willemek ere xuxurlaka erantzun zion, baina lehengo irriño beraz disimulaturik bere hitzen tonu **errietatsua** : [...]. Anjel Lertxundi

Indiar gorri haietarik bati ostiko bat emaiten ziola, herratsu eta **errietatsu**, erran zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

---

errifa *iz* zozketa.

Batzuek gauzak eman, beste batzuek horiek zozketaz eskuratu ahal izateko numeroak saldu eta herritarrek erosi, Juan Leon Kruzalegi artista mundakarrak ostera koadro ederra eman zuen **errifarako**. Edorta Jimenez

---

errifle *iz* fusil mota, kanoia luzea eta ildaskaktua duena.

Azken ekitaldietan deuseztatuko armen artean munizio mota ezberdinak, **errifleak**, metrailetak, morteroak, misilak, pistolak, lehergailuak, lehergaiak eta bestelako armak daudela, segurtasun indarrek emandako kalkuluetan deskribatutako kategoria orotakoak. Berria - Harian

AEBetan erasorako **errifleak** edukitzea debekatzen zuen legea heldu den astelehenean indargabetuko da, 10 urte bete ondoren. Berria - Mundua

Erriflea altxatu eta sugea jotzeari ekin zion. Itxaro Borda

Errifle bat munizioarekin. nobedaderik ez dela adierazteko, **erriflearekin** aldika tiro egiten duen zelatariaren antzera jokatzen dute. Irene Aldasoro

Leherkariak nola erabiltzen ziren erakutsi zigun, eta pistola, **errifle** eta subfusilekin ere egiten genituen tiro-saio batzuk aldian behin. Rafa Egiguren

Akusazioa: AEBetako Armada espiatzea, soldadu afganiar bat eta bi zibil tirokatzea eta bi **errifle** automatiko edukitzea. Berria - Mundua

Winchester markako **errifle** erdiautomatiko bat neraman, eta indarrez heldu nion. Rafa Egiguren

Arituaren erraztasunez sartzen du kartutxo bat errekameran, eta **erriflearen** ahoa txakurren kaiolan sartzen du. Oskar Arana

Banan-banan agertu ziren gizon beltzak... bizkor, **erriflearen** ipurdikadarik gabe. Anton Garikano

Begira zegoen guarda batek sorbaldan jo zuen **errifleaz**. Anton Garikano

Trenean zihoazenei **errifleak** alokatzen zizkieten, denborapasa ederrean bertatik bufaloak tirokatzeko. Patxi Zubizarreta

Haietako hiru jaitsi eta bat zela gainean geratu zen, **erriflea** prest, begiak etxetik eskuinera eta ezkerrera zerabiltzala. Anton Garikano

Erriflearen lobbya, irratietako tertulietako propaganda faxista, prentsaren koldarkeria. Oskar Arana

Kalashnikov **errifleen** soinuak entzuten jarraitzen dira. Berria - Mundua

---

errigore *iz* zehaztasuna, zorroztasuna.

Filosofoa, **errigore** intelektualaren profesionala (omen), ia mende bat osoa orakulu nazionala Espainian, lehenago bezala. orain. Joxe Azurmendi

---

errigoroski *adlag* zehatz, zorrotz.

Egia esan, garaiotan meritu pixka bat badauka, norbaitek horrela metafisika errebindikatzeak, eta **errigoroski** arazo kulturalen eta politikoen ulerpiderako beharrezko legez errebindikatu, ez kosmologiarako edo. Joxe Azurmendi

---

errigortsuki *adlag* zehatz, zorrotz.

Beraz, **errigortsuki** *Volksgeist*ik batere ez, baizik ez dakigu zein psikozientziatako eta erlijiotako zein arima, Unamuno-k eta bere lagunek inbentatua! Joxe Azurmendi

---

errima 1 *iz* bertsoetan eta, hoskidetasuna. ik **puntu 18**.

Erritmoa, **errima**, aliterazioa. Andoni Egaña

Errima eta neurria, esate baterako, poesiaren eta bertsogintzaren berezko osagaiak dira. Iñaki Arranz

Bertsotan alderdi asko zaudek: teknikoak, **errima** eta neurria bezala, eta beste. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

-Lau, bost, eta baita bederatzi **errimako** estrofak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Besteak beste, "ei" **errima** oso hitz gutxik betetzen dutelako euskaraz. Andoni Egaña

Antzina-antzinako kantuak albora utzita, metrika aldetik oso gorabeheratsuak baitira horiek, gainerako estrofa moldeek silaba kopurua eta **errima** dute oinarri. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Errima horiekin ezin, inola ere, bertso onik osatu. Joxerra Garzia

Bertsolariak bat-batean, gai horri eta **errima** horretan erantzun beharko dio. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hortik datoz **errima** borobil eta sendoak, *peau, haut, chaud*. Bernardo Atxaga

Gainera, **errima** baldarrak ateratzen zitzaizkion etengabe: *rincón, acordeón*. Bernardo Atxaga

Mikroaren aurrean kezka bakarra **errima** onak eta bertsoa ondo egitea da. Berria - Kultura

Errima txarra, ez duzu uste? Oskar Arana

Uste dut, sailkapen horren gainetik, **errima** pobre eta aberatsak, onak eta txarrak berezi behar genituzkeela. Andoni Egaña

Bi azken bokalek baino ez dute errimatzen (*ua*) eta ondorioz **errima** pobrea litzateke bi hitz horien artean osatzen dena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gabon-jaien inguruko gai batean ari garelarik, *garestia-eztia-izpia-saskia...* **errima** ona eta aberatsa da. Andoni Egaña

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina "Urepel" hitzarekin amaitzea erabakitzen dugun unetik, esan genezakeena erabat baldintzatua daukagu, ez baitira asko **errima**-sorta horretako hitzak. Andoni Egaña

Almazeneko **errima** zerrendatik egokiak izan daitez-keen hitz batzuk aterako ditugu: ausardia, izerdia, belardia. Andoni Egaña

Bertsolariak badaki, gutxi-gehiago, ze **errima**-sorta menperatzen dituen eta ze **errima**-sortak ematen dion joku gehiago. Andoni Egaña

Kasu honetan bi **errima**-hitzak desberdinak dira formaz, nahiz eta elkarren artean hoskidetasuna izan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lerro bakoitzean hamar silaba ditu eta zortzi bikoitzetan, **errima**-hitza ere azken hauetan doalarik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

- **Errima** familiak hierarkia jakin baten arabera antolatu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lagunartean, kuadrilan, **errima**-almazen txukun samarra daukana nagusituko da. Andoni Egaña

Alderdi ahula **errima** aukeraketatik datorkio bertso honi. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Lazkanok, gozaraziz gain, harritu egiten gintuen: haren bertso barneko tolesdura bikainak, haren **errima** jokoak, haren bertsokera klasiko eta aldi berean modernoa. Berria - Kultura

Egungo bertsolariek erabiltzen dituzten **errima**-estrategia berrien eskutik metafora benetan originalak plazaratu direla. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Guretzat ez da zai-legia arrazoi bat neurri-**errimetara** tolestatzea. Andoni Egaña

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adina errima hitz (3); **behar adina errima** (3); **bere errima** (3); **da errima** (4); **dira errima** (3); **errima bat** (6); **errima eta** (7); **errima eta neurria** (3); **errima hitz** (22); **errima hitz egoki** (3); **errima hitza** (11); **errima hitzak** (6); **errima hitzekin** (3); **errima hitzen** (6); **errima pobrea** (3); **errima sail** (5); **errima sail bakoitzaren** (5); **errima sorta** (6); **errimak ere** (4); **errimak eta** (6); **errimak ziburuko** (3); **errimarik gabeko** (3); **eta errima** (11); **eta errimak** (9); **gure errima** (3); **itsas errimak** (7); **itsas errimak ziburuko** (3); **ze errima** (3)

---

errimadun *izond* errimatua dena, errima duena.

Nabari zenez, idazkariak bazekien hizkera **errimaduna** erabiltzen. Jose Morales

Fantasia bitxi haietako notek bezala, hitzek ere (izan ere, eta ez gutxitan, bat-bateko hitz **errimadunez** laguntzen baitzuen musika), larritasun artifizial handieneko une batzuetan bakarrik ikus daitekeen kontzentrazio horren emaitza behar zuten izan, lehenago ere aipatu dudan egoera berezi horrena. Koro Navarro

Atsotitz askok antzeko egitura dute: bi perpaus elkartzen dituzte, bi ideia, bi periodo; **errimadunak**, gehienetan. Iñaki Arranz

Gauza jakina da Koranean ere prosa **errimadun** zoragarria erabiltzen dela, eta horrela musulmanek arabiar literatura apaintzeko lan nabarmena egin zutela. Xabier Kintana

---

errimagabe *izond* errimatua ez dena, errimarik ez duena.

Bertso **errimagabeak**. Xabier Olarra

---

errimategi *iz* errima bilduna.

Tartean-tartean berritu egin behar izaten da bitxi-lorea, hitz batzuk erabiliaren poderioz akitu egin direlako, beste batzuk ikasi edo **errimategira** ekarri ditugulako edo beste mila arrazoirengatik. Andoni Egaña

---

errimatu, errima(tu), errimatzen **1** du *ad* errimak egin.

Bertsoa berbaldi bat da, kantatuz, **errimatuz** eta neurtuz burutzen dena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kantatzen, **errimatzen** eta neurtzen dakienak, bat-bateko bertsogintzaren gutxieneko arau teknikoak betetzen ditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Errimatzen zituen, adibidez, "libertatia" eta "tristezia". Joxerra Garzia

Edonor bertsogile bihurtzeko, potorik egin gabe **errimatzea** da lehen baldintza. Andoni Egaña

Olerkion formari buruzko ohar batean ikasi zuenez, lehenengo lerroa, bigarrena eta laugarrena elkarri lotuta zeuden: **errimatuta** behar zuten; hirugarrena, berriz, librea zen. Jon Muñoz

"Graka" eta "kaka" **errimatuz** ostera, egin daiteke itsasoari buruzko poesia. Andoni Egaña

Peñak, Oñatin, "Toshack" eta "bazetoxak" **errimatu** zituen. Andoni Egaña

Bertsogintzan **errimatu**, neurtu eta kantatzeaz gain zerbait aurkitzen ez duenak nekez eutsiko diola bertso-lanari. Andoni Egaña

Neurtuz eta **errimatuz** kantuan ari den hura bertsotan ari da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Diotena diotela, **errimatua** den ber, onarpen suerte bat sortzen zaigu. Patziku Perurena

2 (era burutua izenondo gisa)

Gizaseme ahots gordin marrantak "ez, ez dugu onetsiko!" aldarri eginez eman zion amaiera bere hitz-erauntsi **errimatuari**. Anjel Lertxundi

Topikotik bezainbeste du egia gordinetik, hasierako esaldi **errimatu** horrek. Berria - Kirola

Nire afizio nagusia bertsoak idaztea izan baita eta da oraindik, bertso **errimatuak**. bertso eta kopla neurtu eta **errimatuak**. Ana Urkiza

Eguzki pirata honenganako jarrera erabat anbibalentea, beraren planeta gatibuak zirelarik, zorrotz adierazia dago Katuloren biko **errimatu** elegiakoetan: [...]. Iñaki Mendiguren

Amurizak, hiztegi **errimatu** osoagoa eskaintzeaz gain, irizpide bat eman zigun. Andoni Egaña

Bere hiztegi **errimatuan**, familia bakoitzeko errimak, nahasian etorri ordez, gramatika-kategoriatan banaturik zetozen. Andoni Egaña

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errimatu egiten (4); **hiztegi errimatua** (4)

---

errimatzaile *iz* errimak egiten dituena.

Jendea harritu egiten da, gure herrian bertan ni baino hamarka, hogeika, **errimatzaile** bizkorragoak badirela aitortzen dudalarik. Andoni Egaña

---

errime 1 *izond* irmoa.

Bere txanda iritsi denean, Angela aurrera abiatu da pauso **errime** eta seguruz. Patxi Iturritegi

Kontsumoa gure apeta txiki batzuek asetzeko tresna izatetik guztion bizitzaren oinarri izatera iritsi denean erori da koherentziaren zutabe **errimea** gure kontzientziaren oinpeetatik. Pako Aristi

Motorren zarata **errimea**. Joseba Sarrionandia

Portugaleterako enbarkaziora igo zen, ordurako motorrak martxan zituela, altzairuzko sabeletik orroa **errimeak** entzuten baitziren. Joseba Sarrionandia

2 trebea.

Errimea izan behar zuen honek aurreskuak jotzen. Iñigo Aranbarri

Gure suhia ez da **errimea** esplikazioak ematen, eta ni beti enteratzen naiz azkena. Pedro Alberdi

Aintzat hartuko ditugu ageriko lau horiek eta Cambacérès magistratua, berori izan baitzen kode proiektu zenbaitzuen egile eta maizenik ere, Napoleonen aholkulari **errimea** lege gorabeheretan. Andres Urrutia

3 (adizlagun gisa)

Botila ardoaren inguruan kartetan hasi ziren, **errime** solasean. Joseba Sarrionandia

Alboan eserita Bilboko egunkari ezaguneko zine kritikoa, Luis Mari, **errime** zurrunka. Berria - Kultura

'Zergatik?' galdetu zuen Maitek ere **errime**. Joseba Sarrionandia

Argi eta **errime** esan zuen, *Ustedes están aquí,* Bizkaiko itsaso bazterra seinalatuz arbeleko mapan. Joseba Sarrionandia

Muino gainean haizea **errime** sentituko duzue. Joseba Sarrionandia

Kalaportuko jendeak **errimeago** egiten zuen, itsasoko haizeak hitzak hain erraz eraman ez zitzan agian. Joseba Sarrionandia

Halako batean, azkazalak bizkarrean sartu eta **errimeago** astintzeko eskatu dit. Patxi Iturritegi

Batbatean, oso **errime** entzun zen oihua: [...]. Joseba Sarrionandia

'Ba gerrak garbituko ditu gauzak!' aldarri egin zuen aitak ezkaratzetik oso **errime**. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errime esan (3); **eta errime** (5); **oso errime** (4)

---

errimel *iz* betileak sendotzeko kosmetikoa, eskuilatxo batek, eta krema lodi eta eskuarki ilun batek osatua.

Manikura egiten zuen neska ilehoriak betileak **errimel** apur batez apaindurik zituen. Lopez de Arana

Zilar koloreko **errimelak** probatzen ari nintzela, aterkien sekzioan bikote batek atentzioa eman zidan. Jasone Osoro

Azkenik, **errimela**, betile amaiezinak. Sonia Gonzalez

Orduan, esan ezpainak frantsesezko irakaslearen etxean **errimelez** pintatu zenituela marikoia zarelako. Joseba Sarrionandia

Aurkikuntza hori baino lehen, egunez egun handiagotzen zen **errimel** orban iluna utzi nuen sofaren besoaren gainean. Sonia Gonzalez

Kanpoko ispiluan begiratu diot neure buruari, **errimela** oraindino betileetan dagoela egiaztatzeko. Sonia Gonzalez

Errimel ez oso zuzen ezarriak eta soberako pinturak huts eginik zioten bisaia gogortua eztitzeko lanetan. Aingeru Epaltza

Esan zidan badela **errimel** bat malkoekin zabaltzen ez dena, baina ez zuela erabili nahi izan, agurrean niretzat ahalik eta patetikoen gertatzeko. Ramon Saizarbitoria

---

errinitis *iz* sudur zuloetako muki mintzaren hantura.

Asma eta **errinitis** alergikoa. Berria - Gaiak

---

erriño ik **irriño**.

---

errinozero 1 *iz* ugaztun apodun belarjalea, handia eta zango-motza, azala gogorra, lodia eta zimurra duena, sudur gainean adar bat edo bi dituena *(Rhinoceros)*.

Adarbakarra deitu izan zaio **errinozeroari** -*Rhinoceros unicornis* deituari, greko eta latineko deitura itzuliz sudurrean adar adarbakarra deituari- eta, batez ere, adarbakarra deitu izan zaio unikornio izenez hain ezaguna den animalia mitologikoari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ekainen zaldia da nagusi, baina bisonteak, hartzak eta **errinozeronteren** bat ere irudikatuta daude bere hormetan. Berria - Kultura

Afrikako azken **errinozeroa** hilarazi zuen niretzat, haren adarraren hautsa edukitzeko. Joxan Elosegi

Osaba Vernon eseri egin zen berriro, **errinozeroa** bezala arnaska eta bere begi txiki eta zorrotzen ertzetik Harryri begira. **Errinozero** batek adarka jotzen duen modu berean sartu zidalako atzealdetik. Iñaki Mendiguren

Pompidouk, Errepublikako presidente guztiek bezala, elefante baten oroimena zuen, eta **errinozero** baten amorrua. Juan Garzia

Hurbildu egin nintzen, nahikoa harriturik, algodoi-fardelak eta **errinozeroen** adarrak garraiatzen zituzten morroiak bazterrera bultzatuz. Jon Alonso

Malanttoniren aharrak **errinozeroarenak** bezain beldurgarriak ziren, zinez. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Afrikako **errinozero** beltz basatiak ugaritu egin direla esan du WWF erakundeak. Berria - Gaiak

Gainerakoek ikasgela txikitzeari ekin zioten, **errinozero** erotu bat baino eraginkorrago. Iñaki Mendiguren

Haserretzen zenean sudur zuloak ireki eta itxi egiten zitzaizkion **errinozero** amorratu baten antzeko soinua eginez. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Errinozero figurak islatzen dituzten bi grabatu ezkutu. Berria - Kultura

Goseak **errinozero** azalpean bezala su hartzen zuen desira bat. Eider Rodriguez

Nahiz eta ez dugun oraindik horrelakorik ikusi, suge haragi, ximino burumuina ala **errinozero** adarrak, omen, errexki aurki ditzakegu. Ramuntxo Etxeberri

---

errio *iz* ibaia; itsasadarra.

Begiekin haien aparrari jarraitu nien, **errioaz** beste alderaino. Edorta Jimenez

Ardatz nagusitzat **errioa** harturik (Oria ibaia zehazki), Usurbilgo (Gipuzkoa) Aginaga auzoko pasadizoak, hitzak eta esamoldeak jasotzen dituen liburua osatu du Jabier Pikabea Aizpurua usurbildar poeta eta ikertzaileak. Berria - Kultura

Bizkaiko Zubiaren bide paraleloa egiten zuen motoran zeharkatu zuen Joseluk **errioa** , eta ontziak txopa estalia zuela esker, sargori osteko zaparrada trinkoak ez zuen zeharo blaitu. Josu Landa

Apirilaren azken egunean gureek **errioko** ezkerreko bidea libre utzi zuten. Edorta Jimenez

Mundakako **errioak** - **errioari** itsasadarra esaten diote orain- fama txarra du, zeren eta haizea hirugarren eta laugarren koadranteetakoa izanez gero gaitz egiten baita belak maniobratzea. Edorta Jimenez

---

errioxar **1** *izlag/iz* Errioxakoa, Errioxari dagokiona; Errioxako biztanlea.

Zorte txarragoa izan zuen azken taldeak, Madrilen bizi diren **errioxar** lagunek. Berria - Kultura

Titin III **errioxar** pilotariak badu goraipamen egun hautan. Herria

Luciano Arrabal **errioxarra** nagusi Mungian, estreinakoan. Berria - Kirola

Errioxarra da eta Donostian du bere bizipidea, informatikan. Piarres Aintziart

Haietako bat katalana zen, Sabadelleko fabrika batzuen ordezkaria; bestea, ardotarako tartratoak saltzen zituen **errioxar** bat, eta azkena andaluz bat, Madrilen bizi eta tresna elektrikoak saltzen zituena. Josu Zabaleta

Gero **errioxar** hori Deustura etorri zen egonaldi bat egitera. Gotzon Garate

Jesus Angel Tobias Santo Domingo, 28 urteko **errioxarra** . Berria - Euskal Herria

Azkaindarrak errautsi du **Errioxarra** Eibarren 45 minutez eta 6 kintze sakez. Herria

Errioxarrak sei denboraldi daramatza Bizkaiko taldean. Berria - Kirola

Entzule asko eta asko, Errioxatikoak eta Nafarroakoak ziren: eskerrona gustura azaltzen zuten **errioxar** eta nafar jatorrak. Pello Zabala

Partida 2-2 zegoenean sartu zen zelaira Osasunaren harrobitik igotako erdilari **errioxar** gaztea, eta hiru minutu geroago garaipenaren gola sartu zuen. Berria - Kirola

Titin **errioxarra** eta Imaz segurarrak pare ona moldatzen dute eta partida asko irabazten. Herria

2 (pertsonez bestelakoak)

Beste tragoxka bat egin nion **errioxar** ardo beltzari. Joxemari Iturralde

Bertan, **errioxar** ardoaren inguruan hainbat emanaldi egingo dituzte egun osoan. Berria - Kultura

Guadalajaran, han izan zituan Nafar-**Errioxar** Miliziak, hantxe asaltoko guardiak. Edorta Jimenez

---

erripa *iz* aldapa pikoa.

Edozein **erripa** eta pendizetan. Pello Zabala

Klima, berez, aldatsa, pendiza eta **erripa** delako, eta eguraldia, goizetik gauera, eta gauetik goizera, beti ari delako zer edo zer aldatzen. Pello Zabala

Sorbalda berriz zamatuta ekin zion atzealdeko **erripan** gora. Josu Landa

Erripan behera motozikletaren abiada handiagotuz zihoalarik, tranbiaren burdinbideekin olgetan aritu zen Fonseca. Josu Landa

Zuhurrak lirateke, aldiz, nolabait esateko, lautadaren **erripa** leunari jarraituz, kopuru osoa apurka eta berdin banatuz eta isuriz, alde guztietan lehortea zein uholdea eragotziko luketen lege eta ohiturak. Juan Martin Elexpuru

---

erripuario *izond/iz* Renaniakoa.

Franko **erripuarioen** legeak beste espiritu bat zuen; askietsi egiten zituen froga negatiboak. Iñaki Iñurrieta

Lege **erripuarioak** ere isuna ezartzen zion ekintza horri, hildako pertsonaren mailakoa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lege saliko eta **erripuarioetan** , alemanen, bavariarren, turingiarren eta frisiarren legeetan, sinpletasun miresgarria dago. Iñaki Iñurrieta

Usadio hori ezarrita ageri da Markulforen formuletan, barbaroen legeen kodeetan -batez ere **erripuarioen** legean-. Iñaki Iñurrieta

Alemanen, bavariarren, turingiarren, frisiarren, saxoniarren, lonbardiarren eta burgundiarren legeak **erripuarioen** molde beraren gainean egin ziren. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erripuarioen legeak** (6); **saliko eta erripuarioetan** (3)

---

erris *(orobat **erriz**) iz* arroza.

Gauza idorrak edo pasatzen ez direnak dira galde eginak, hala nola kontserbu, xokolet, sukre, olio, kafe, **erris** , pastak etabar... Herria

---

errita ik **errieta**.

---

erritma ik **erritmo**.

---

erritmiko **1** *izond* erritmoarena; errimoa duena; erritmoari dagokiona.

Zakila mugimendu **erritmiko** batez igurtziz egiten da masturbazioa. Luis Elberdin

Noraren salto txikiak, berriz, hasita zeuden dantza-moduko gorputz-higidura **erritmikoago** bat osatzen. Anjel Lertxundi

Fluktuazio **erritmikoen** serie batean. Iñaki Mendiguren

Mustafa Santic (soinua eta klarinetea), Sandy Durakovic (gitarra **erritmikoa**), Kosta Latinovic (baxua) eta Sead Avdic (bateria). Berria - Kultura

Giza-lerro batzuen martxaren pauso-hots **erritmikoa** aditu zen tenpluan. Koldo Biguri

Salbuespena bihotza da: muskulu konplikatu bat, uzkurtze **erritmikoak** bere kasa egiteko gaitasuna duena. Irene Aldasoro

Ez dit ardura Ipuin Orokorraren zaleek, beren ezjakintasunean, ahozkotasuna kaleko hizketa arruntarekin parekatzeak, haren adierazpen **erritmiko** eta formalizatuak aintzat hartu gabe. Bernardo Atxaga

Prozesatze prosodikoaren aroan, silaba gutxiagoko eredu **erritmiko** batean txertatu da hitza. Lourdes Oñederra

Oso errezeptore biziak dira, eta ezinbestean elkarrekin joan behar duten bi estimulu mota jasotzen dituzte: presioa eta bibrazio **erritmikoa**. Luis Elberdin

Aretoan ezproien hots **erritmikoa** entzuten zen. Jose Morales

Jo eta jo segitzen zuen kanpaiak, haizeari, zeruari, itsasoari bere mezu **erritmikoa** entzunarazi nahirik. Fernando Rey

Laztan konpasatu **erritmikoetan**. Joxerra Garzia

Presio horiek, arreta-galarazte horiek, hautsi egiten zioten kontzentrazioa, martxa gozo eta **erritmikoa** eteten. Xabier Olarra

Uzkurdura espasmodikoak, **erritmikoak**, nahi gabekoak eta atseginezkoak dira horiek. Luis Elberdin

Bada aukera mugimendu horiek ere, musikaz nahiz egintzaz, isuri **erritmiko** eta melodikoz ordezteko. Xabier Olarra

Hots **erritmiko**, arimarik gabeko hark halako tristezia lauso bat sartu zidan bihotzean. Alberto Ladron Arana

Hazkundeak, desintegrazioak bezala, ziklikoki **erritmikoa** den mugimendu bat erakusten duela. Iñaki Mendiguren

Igerileku baten luzera tikik gabe egin zezakeen igerian, besakada berdin eta **erritmikoz**. Xabier Olarra

Azkenean, orkestra leihoaren ondora iritsi zen, eta ziega osoa doinu alaiz, **erritmikoz** bete zuen, polifonia harmoniatsuan. Jose Morales

Txalo, oin-zarta eta kantuketa **erritmikoan** murgildu zen, eta oihuka hasi: [...]. Xabier Olarra

Horrela, geldituz eta dardar eginez, dantza mugimendu **erritmiko** bat erdietsi zuen, geldialdiak erritmoaren zati bat eta pintzelkadak beste bat balira bezala. Anton Garikano

Gimnastika **erritmikoko** Euskadi eta Alemaniako taldeek indarrak neurtuko dituzte gaur Gernikan. Berria - Kirola

2 (adizlagun gisa)

Bihotz-taupadak dira ozen eta **erritmiko** nabaritzen ditudan bakarrak, gauza ona, bestalde, bizirik nagoela ziurtatzeko bederen. Sonia Gonzalez

---

erritmikoki *adlag* era errritmikoan, erritmoz.

Pedalei **erritmikoki** eragiteari utzi orduko, tik eta konpultsio sail batek hartu zuen mendean. Xabier Olarra

---

erritmo *(orobat **erritma** g.er.)* **1** *iz* hots, silaba, taupada edo kidekoen segida batean, indardunak eta indargabeak, luzeak eta laburrak aldizkatzeko era, periodikoki errepikatzen dena.

Nahikoa lan zeukan eskumako hankaz **erritmoa** markatzearekin. Unai Iturriaga

Oinekin **erritmoa** eramatea dantzatzea al da? Harkaitz Cano

Anek beste break bat egin eta **erritmoa** bizkortu zuten. Unai Iturriaga

Noiz nahi zuen **erritmoa** geldotu edo azkartzea. Harkaitz Cano

Bilbon izango zuen elkarretaratzearen perspektibak areagotu egin zion pausoen **erritmoa**. Josu Landa

Bihotz taupaden **erritmoa** bizkortu zitzaion, garondoko kilikadura areagotu, nerbioak dantzan jarri. Migel Angel Mintegi

Bihotza azkartu zaizu eta arnasaren **erritmoa** aldatu. Lourdes Oñederra

Erritmoa markatzen dute hots errepikapen hauek, halako pisu berezia emanez hitz jarioaren zolitasunari, behin eta berriz jotzen duenaren eraginkortasunarekin. Iñaki Arranz

Tapatekoak ematen zizkion bolanteari irratsaioan jarritako musikaren **erritmoari** jarraituz. Bernardo Atxaga

Niregandik apur bat urrundu eta lizunki mugitzen hasi zen, airea betetzen zuen musikaren **erritmora**. Juan Martin Elexpuru

Berez, 3/4 konpasa dana, baltse **erritmokoa**, Rufinok ez eban zan moduan joten, konpas batzuk janaz eta **erritmoa** bere erara egokituaz baino. Xabier Amuriza

Musika militarraren **erritmoan**, xanpain botilak ireki zituzten aretoan. Juan Kruz Igerabide

Ni liluraturik geratu nintzen **erritmoen** eta kontrarritmoen kateatze harekin. Juan Kruz Igerabide

Mokorrei eraginka hasi nintzen, azkar eta **erritmoz**. Juan Martin Elexpuru

Definizio honetara ongien egokitzen den adibidea musikarena da, bere **erritmozko** osagaiaren bitartez emozio zuzenekoenak, emoziorik bortitzenak eragiten dituela esaten baita. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Pentsatzen zuen Marcosi ez zitzaiola otu zaharrek beste **erritmo** bat dutela; ez dela guztia arineketan egin behar. Unai Elorriaga

EHUn hasiak gara lanean, baina zentro bakoitzak bere **erritmoa** du. Trenaren **erritmoan** ohitutako neska zen: pixkanaka, geltokiz geltoki. Berria - Euskal Herria

Ni baino gizon zuhurrago eta ikasiagoek historian bilbe bat, **erritmo** bat, aurrez erabakitako egitura bat bereizi dute. Iñaki Mendiguren

Panathinaikosek partidaren **erritmoa** mantendu zuen, erraz saskiratuta (60-48). Berria - Kirola

Pirinioetako lehen etapa, lehen malkar pikoak, eta lehen entresaka: Jan Ullrich atzera US Postalen **erritmoa** jarraitu ezinda. Berria - Kirola

Bizikletak ematen dio **erritmoa** eta lotura nobelari. Berria - Kultura

Egoera horrek erloju politikoa eta soziala **erritmo** berean jarri behar direla erakusten du. Berria - Euskal Herria

Egia esan, erabat urbanoak diren denboretan, **erritmoetan**, gabiltza. Bernardo Atxaga

Zerk egiten du pertsonaia bat interesgarri, zerk ematen dio testu bati zinezko bizitasuna, non demontre aurkitu behar da istorio horrek duen **erritmoa**, tempo-a. Lander Garro

Itzuliko ote naiz egunero idaztearen diziplinara, gauza izango ote naiz orain arteko **erritmoa** gordetzeko? Anjel Lertxundi

Eten egin du bere lanaren **erritmoa**. Hasier Etxeberria

Filma editatzeko orduan **erritmoa** eman ahal izan diot. Berria - Kultura

Ivanovicek entrenamenduen **erritmoa** gogortzea erabaki du. Berria - Kirola

Erritmoa hartu orduko, itzuli behar! Piarres Aintziart

1985az geroko petrolio gordinaren kontsumoaren gorakadaren **erritmoari** (%1,6 urteko) eusten bazaio, prezio errealek laster egingo dute gora. Koro Navarro

Bizitzaren **erritmoak** ikuskera jakin bat eragiten du; ikuskerak, berriz, bizitzaren **erritmoa** markatzen. Anjel Lertxundi

Gatzik ez zuen, gaizki antzezten zuten, **erritmoa** falta zuen. Anjel Lertxundi

Erreforma ekonomikoen **erritmoa** bizkortzeko promesa egin dute. Berria - Mundua

Egungo **erritmoan** kontsumitzen jarraitzen bada, 40-50 urtean bukatu egingo da petrolioa. Berria - Euskal Herria

Inportazioen hazkundearen **erritmoa**, bolumenean, urteko %10 ingurukoa zen. Koro Navarro

Jendea ez da bizi beharrerako soilik, gu bezala, beste **erritmo** bat dute, humanoagoa edo. Iban Zaldua

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Erorialdi eta susperraldien **erritmo** ziklikoak. Iñaki Mendiguren

Lan horretan ondo laguntzen du **erritmo** errepikakorreko musikak. Berria - Kultura

Basamortuko Tuareg horien kantu eta **erritmo** baketsuak atsegin handiz ditugu gozatu. Herria

Erritmo etnikoak eta doinu zeltiarrak euskal musikarekin nahasten ditu. Berria - Kultura

Erritmo naturala, hats berezkoa islatzen bide ziren halaber hondartzan aurrerago aurkituko zuten beste zerbaitetan. Iñaki Iñurrieta

Ordenagailu baten bidez **erritmo** sintetikoak sortzen dituzte. Berria - Kultura

Erritmo sinkopatuak eta jazz akorde bereziak eskaini zituen, ideia sinfonikoak nola garatu jakin gabe. Berria - Kultura

Oldartu gabe, **erritmo** arin eta jarraikian, zereginari lotu zitzaion mutil gaztea. Jon Muñoz

Burumakur sartu nintzen bagoian baina trenaren **erritmo** biziak berehala esnarazi ninduen. Jasone Osoro

Erritmo biziko lasterketa izan den arren, ez dute markarik hobetu. Berria - Kirola

Eguneroko **erritmo** geldo eta ia geldia gabe, galduak geundeke hemen. Anjel Lertxundi

Anek **erritmo** astuna markatzen zuen bonboaz eta baseaz. Unai Iturriaga

Hasieran hartutako **erritmo** onarekin jarraitu genuen, eta *Arraun Lagunak*-en aurretik helmugaratu ginen. Berria - Kirola

Jarduera horietan trukeak, kasurik hoberenetan, ekoizpena aldatzen den **erritmo** berean aldatzen baitira. Koro Navarro

Berbak izugarri luzatzen ditu, denbora erreala eta bere barnekoa **erritmo** ezberdinetan balihoaz bezala. Sonia Gonzalez

Bi hatz erakusleez, **erritmo** beti berdinean, teklak bizkor ez baina seguru sakatuz. Iñaki Iñurrieta

Metal puska merke sentitzen du bere burua, eta neskak **erritmo** beti bateko hartaz, etenik gabe, lantzen, urratzen duela. Iñaki Iñurrieta

Metal industrialak ordezkari ugari ditu munduan, baina Euskal Herrian, aldiz, oraindik talde gutxi ausartzen dira gitarra, baxu eta bateria bortitzei ordenagailu bidez sortutako **erritmo** programatuak gehitzera. Berria - Kultura

Erritmo neurtuak eta urrats bixi-bixiak gorputz osoari jabaldura eman diote. Piarres Aintziart

Murgilduta bizi garen **erritmo** zoroak sortarazten digun denbora falta zaigulako sentsazio horrek. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

1868tik aurrera, industrializazio eta antolamendu ekonomiko moderno baten oinarriak ipintzen hasi zen estatua, XVII. mendeaz geroztik Europa merkantilistak urratu zuen bide beretik, **erritmo** azeleratu batez ordea. Koro Navarro

Lastertasun, tempo, azentu, **erritmo** jakin bat duen eredu musikalean. Lourdes Oñederra

Oixtian aipatu dudan "monotonia" **erritmo** lasai eta poetiko bilakatzen ari naiz. Piarres Aintziart

Obraren taxua guztiz argia da eta bere **erritmo** hala intelektuala, nola estilistikoa, bateratua da. Xabier Amuriza

Karibeko **erritmo** guztiak odolean balitu bezala ari zen dantzan. Jon Muñoz

Galdutako **erritmoa** lortu, berriz ere, daukadan guztia eman ahal izateko. Berria - Kirola

Nire eguneroko **erritmoa** apurtzen dit. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erritmo bikoteak (Sonny Below danborretan eta Rod Demick beteranoa baxuan) lan sendoa biribildu zuen ere. Berria - Kultura

Erritmo aldaketa hori da zailena. Filipe Bidart

Kontsonante- eta bokal-kateak doinu- eta **erritmo**-ereduetan txertatzen direnean. Lourdes Oñederra

Silaba edo **erritmo** unitate berean ahoskatzen direlako. Lourdes Oñederra

Erritmo-tipologiari buruzko auziak auzi, agerikoa da euskarak silaba-egitura ona duela, alegia, CVCV egituratik gertuago dagoela beste hizkuntza batzuk baino. Lourdes Oñederra

Captain Nemok doinu eta **erritmo** paleta zabala erabili du estreinako diskoan. Berria - Kultura

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan **erritmo** handia zuten. Itxaro Borda

Irakurlearen bizitza-**erritmoa** halakoxea zelako. Andoni Egaña

Kantari beltza, soulean, hip-hopean eta beste hiri **erritmoetan** iaioa. Berria - Kultura

Boogie **erritmo** bat zen, Eligiok, beltz batek nola, berdin-berdin kantatzen zuena. Josu Zabaleta

Elkarren aurkako asmoak eta bizi-**erritmo** desberdinak dituzten pertsonen artean sortzen den tirabira hori. Xabier Olarra

Baliteke bihotz-taupadak, odol-presioa eta arnas-**erritmoa** gehitzeak muskuluetara oxigeno gehiago helarazten laguntzea. Irene Aldasoro

Haize balek halako arnasa **erritmoa** eransten zioten isilari, eta aurreko zuhaitzen hostotzan zurrumurru etenkorra eragiten. Txillardegi

Baratx baina arin ekin zion irakurketari, ibiltzerakoan ere erakusten zuen liraintasuna oroitarazi zidan hots-**erritmo** lijer halako batez: [...]. Anjel Lertxundi

Enpleguen hazkunde-**erritmo** handi hori enpleguaren prekarizazio gero eta handiago batekin lotua dago. Koro Navarro

Edukiaren eta kontaketa **erritmoaren** arteko oreka gertatu zenean. Ana Urkiza

Silaba da hizketa **erritmoaren** unitate oinarrizkoena. Lourdes Oñederra

Egia da musika-**erritmo** batek [...] eragin fisikoagoa, ezin itzurizkoagoa duela guregan irudiaren edozein elementuk baino. Josu Zabaleta

Ez da hala izaten bestelako arnas-**erritmo** aldaketekin. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnas erritmo (3); **arte erritmo** (3); **arteko erritmo** (3); **baina erritmo** (9); **baino erritmo** (5); **baten erritmo** (3); **bere erritmo** (13); **beste erritmo** (18); **beste erritmo bat** (9); **beti erritmo** (3); **bizi erritmo** (3); **da erritmo** (6); **dira erritmo** (3); **diren erritmo** (3); **doinu eta erritmo** (3); **du erritmo** (4); **duen erritmo** (4); **edo erritmo** (4); **ere erritmo** (7)

erritmo aldaketa (26); **erritmo aldaketa bat** (3); **erritmo aldaketak** (8); **erritmo aldetik** (3); **erritmo arina** (3); **erritmo azkarra** (5); **erritmo bat** (13); **erritmo batean** (3); **erritmo bera** (3); **erritmo berarekin** (3); **erritmo berari** (4); **erritmo berean** (19); **erritmo beroekin** (3); **erritmo beti** (4); **erritmo bikotea** (4); **erritmo bizi** (14); **erritmo bizi bizia** (3); **erritmo bizi eta** (5); **erritmo bizia** (47); **erritmo bizia eman** (4); **erritmo bizia eta** (3); **erritmo bizia ezarriz** (3); **erritmo bizia jarri** (4); **erritmo bizia jartzen** (3); **erritmo biziagoa** (3); **erritmo biziagoan** (3); **erritmo biziak** (4); **erritmo bizian** (17); **erritmo bizian ari** (3); **erritmo bizian jokatu** (3); **erritmo biziarekin** (4); **erritmo biziari** (6); **erritmo biziko** (10); **erritmo biziko partida** (3); **erritmo bizikoa** (5); **erritmo bizkorra** (3); **erritmo bizkorrean** (3); **erritmo desberdinak** (4); **erritmo edo** (3); **erritmo egokia** (9); **erritmo egokia hartu** (3); **erritmo egokia hartzeko** (3); **erritmo egokian** (5); **erritmo eta** (33); **erritmo ezberdinak** (6); **erritmo falta** (15); **erritmo falta nabaria** (3); **erritmo geldo** (6); **erritmo geldoa** (3); **erritmo gogorra** (7); **erritmo gogorra jarri** (3); **erritmo gutxiko** (3); **erritmo handia** (4); **erritmo handiko** (5); **erritmo handikoa** (4); **erritmo handiz** (4); **erritmo hori** (12); **erritmo horiek** (4); **erritmo horretan** (8); **erritmo horri** (8); **erritmo itoa** (3); **erritmo jakin** (3); **erritmo lasaia** (6); **erritmo latinoak** (4); **erritmo ona** (3); **erritmo onean** (4); **erritmo oso** (3); **erritmo pausatuan** (3); **erritmo sendoak** (4); **erritmo sendoak eta** (3); **erritmo zitala** (3)

eta bere erritmo (4); **eta erritmo** (85); **eta erritmo bizi** (4); **eta erritmo bizia** (4); **eta erritmo eta** (3); **ez du erritmo** (3); **hazkunde erritmo** (4); **hazkuntza erritmo** (3); **joko erritmo** (3); **lan erritmo** (8); **musikaren erritmo** (5); **oso erritmo** (14); **partidari erritmo** (3); **zein erritmo** (3); **zen erritmo** (7); **zion erritmo** (4); **zituen erritmo** (4); **zuen erritmo** (9); **zuten erritmo** (5)

arnas erritmoa (3); **arnasaren erritmoa** (6); **aurkariaren erritmoa** (3); **baina erritmoa** (3); **bakoitzak bere erritmoa** (4); **bere bizi erritmoa** (3); **bere erritmoa** (25); **bere erritmoa ezarri** (3); **betetzeko lanen erritmoa** (4); **bizi erritmoa** (5); **da erritmoa** (4); **dut erritmoa** (4); **duten erritmoa** (4)

erritmoa aldatu (9); **erritmoa apurtzeko** (4); **erritmoa apurtzen** (3); **erritmoa azkartu** (3); **erritmoa behar** (3); **erritmoa behar bezala** (3); **erritmoa bereganatu** (8); **erritmoa bereganatu zuen** (3); **erritmoa bereganatzea** (3); **erritmoa bereganatzeko** (5); **erritmoa berreskuratu** (5); **erritmoa bizitu** (8); **erritmoa bizitu eta** (3); **erritmoa bizitu zuen** (3); **erritmoa da** (3); **erritmoa du** (4); **erritmoa duela** (3); **erritmoa ere** (5); **erritmoa eta** (28); **erritmoa eurek** (4); **erritmoa eurek jarri** (3); **erritmoa ez** (7); **erritmoa ezarri** (9); **erritmoa ezartzea** (3); **erritmoa ezartzeko** (7); **erritmoa ezartzen** (5); **erritmoa falta** (5); **erritmoa galdu** (4); **erritmoa hartu** (18); **erritmoa hartu eta** (3); **erritmoa hartuz** (3); **erritmoa hartzea** (10); **erritmoa hartzea falta** (3); **erritmoa hartzeko** (6); **erritmoa hartzen** (11); **erritmoa hartzen ari** (3); **erritmoa jaitsi** (4); **erritmoa jarraitu** (8); **erritmoa jarraitu ezinda** (3); **erritmoa jarri** (3); **erritmoa lortu** (3); **erritmoa mantentzen** (3); **erritmoa mantsotzeko** (3); **erritmoa markatzen** (7); **erritmoa nabarmen** (6); **erritmoa oso** (4); **erritmoa sentitu** (3); **erritmoa zen** (3)

eta erritmoa (40); **haien erritmoa** (3); **hazkundearen erritmoa** (3); **horien erritmoa** (3); **izan zuen erritmoa** (3); **jokoaren erritmoa** (3); **komeni zitzaien erritmoa** (4); **lan erritmoa** (6); **lanen erritmoa** (6); **nire erritmoa** (3); **oraindik erritmoa** (3); **partida erritmoa** (3); **partidaren erritmoa** (43); **partidaren erritmoa bereganatu** (4); **partidaren erritmoa eurek** (3); **pixkanaka erritmoa** (3); **postalen erritmoa** (4); **tauk partidaren erritmoa** (3); **txapelketa erritmoa** (4); **us postalen erritmoa** (4); **zaion erritmoa** (3); **zen erritmoa** (5); **zitzaien erritmoa** (4); **zitzaion erritmoa** (3); **zuen erritmoa** (14); **zuten erritmoa** (6)

bere erritmoak (3); **bere erritmoan** (11); **bere erritmora** (4); **doinu eta erritmoak** (3); **duen erritmoan** (3); **egungo erritmoan** (3); **erritmoak eta** (12); **erritmoak ez** (4); **erritmoan ari** (3); **erritmoan hasi** (3); **erritmoan hazi** (4); **erritmoan igo** (3); **erritmoaren arabera** (3); **erritmoaren jabetza** (3); **erritmoari dagokionez** (3); **erritmoari eustea** (5); **erritmoari eusteko** (3); **erritmoari eusten** (5); **erritmoari eutsi** (17); **erritmoari eutsi zion** (3); **erritmoari jarraituz** (3); **erritmora egokitu** (7); **erritmora egokitzea** (3); **erritmora egokitzeko** (3); **erritmorik ez** (4); **erritmorik gabe** (6); **erritmorik gabeko** (4); **eta erritmoak** (14); **eta erritmoan** (3); **eta erritmoaren** (4); **eta erritmoaz** (3); **eta erritmoz** (5); **haren erritmoan** (3); **lan erritmoak** (3); **lehen mailako erritmora** (3); **mailako erritmora** (3); **musikaren erritmoan** (5); **musikaren erritmoari** (3); **musikaren erritmora** (3); **nire erritmoan** (5); **partidaren erritmoari** (3); **taldearen erritmora** (4)

erritmodun *izond* erritmoa duena.

Ederra da arraunen soinu **erritmoduna** hurbil-hurbiletik entzutea. Berria - Kirola

---

errito ik **erritu**.

---

erritu *(ETCn **2.198** agerraldi; orobat **errito** ETCn **842** agerraldi)* **1** *iz* erlijio komunitate baten zeremonien multzoa; erlijio komunitate batek arauturiko zeremonia.

Erritua errespetatuz, beilari guztiek bezala egin dut nik ere. Txillardegi

Gizartearen beraren dramen ordaina besterik ez dira **errituak**, festak eta jaiak. Askoren artean

Biziaren Iturri eta munduaren Argi den Jesusi, kristauek zuzenki lotu dute su eta ur horien **erritua**. Herria

Talde guztiek dute joera beren dialektoa eta beren **errituak** sortzeko. Juan Garzia

Erlijioen arteko elkar ulertzea bermatzeko, ezinbestekoa da erlijio bakoitzak dituen sinesmen, **erritu** eta ohiturak errespetatzea. Berria - Harian

Badakigu nola beztitzen dituen Erromako Elizak bere **errituak** eta bertze zirimonia suerte batzuk modu hantu batean, halako moldez, non ikuskizun bihurtzen baititu isil-gordean eraman beharrekoak ere. Joan Mari Irigoien

Ez dute ezer txarrik **errituek**, une zailak samurtzeko asmatu ziren. Oskar Arana

Irrikaz nago beren **errituak** burutzen dabiltzan erromesekin bat egiteko, irrikaz nago hango kaperetan bakarrean egoteko eta ene egarria Zemzem-eko putzuan asetzeko. Patxi Zubizarreta

Azken hiru urteetatik hona ohitura bilakatu den **erritua** errepikatuko da NUPeko pabiloian. Berria - Kirola

Nik sinesten dut **erritu** edo ohitura batzuek daukaten indarrean. Pako Aristi

Zeremoniek, **errituen** errepikapen obsesio goxo batez beterikoek, eternitateak denbora jan balu bezala, aldareko urreek, arropen distirak, loreen perfumak, intsentsuak, kantuen xarmak zentzu guziak asebetetzen zizkidaten. Piarres Aintziart

Deabrua harrikatzeko **erritua** egingo dute ondoren. Berria - Mundua

2 irud/hed

Euskal pilota: **erritu** bat, estetika bat **Errituak** ezagutzen zituen: frankotan aditua zuen, norbait zentzean, baserriko nagusiak erleak abisatzen zituela: [...]. Berria - Kultura

Jatea **erritua** da, eta **errituek** erraztu egiten dituzte gauzak. Oskar Arana

Hiriak bizitutako aldi beltz eta ilunaren ondoren, prest zeuden bertakoak, festaren **errituaz** lagundurik, etorkizunari heltzeko. Llumek, **errituari** jarraituz, kotoizko galtza lasai batzuk jantzi eta makillajea eta ile-gogortzailea kentzen ditu. Askoren artean

Indarra ezkutuan zuten **errituak** salbatzen ari zinen zu. Josu Zabaleta

Bada **erritu** bat zientziaren emaitzak aurkezteko eran. Juan Garzia

Egia da zenbait eskolak erabili izan dituztela drogak egoera jakinetan, **errituren** baten barruan, aztikeria eta yoga uztartuz, edo fakirismoa praktikatuz. Juan Kruz Igerabide

Egia da zenbait eskolak erabili izan dituztela drogak egoera jakinetan, **errituren** baten barruan, aztikeria eta yoga uztartuz, edo fakirismoa praktikatuz. Juan Kruz Igerabide

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Erritu arraroak asmatu zituzten eta sakramentu deitu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hizkuntza, ideiak adierazten dituen ikur sistema bat da; hori dela eta, hizkuntza beste sistema batzuekin erka dezakegu, hau da, idazkerarekin, gor-mutuen alfabetoarekin, **erritu** sinbolikoekin, adeitasunezko formekin, [...]. Isabel Arrigain

Baginatik odola botatzea gaixotasuntzat jo izan da, edo, pentsaera magiko-sinboliko baten arabera, egoera zikintzat, eta, osatzeko edo garbitzeko, hainbat **erritu** magiko asmatu izan dira. Luis Elberdin

Kultura kontseilariak nabarmendu zuen ez dagoela dudarik ohitura kristauen arabera egindako lurperatzeak direla, «erromatar **errituaren** araberakoak, zehatz esanda». Berria - Harian

Heriotza zigorraren inguruan, halako **erritu** makabro bat sortzen da, eta ez dirudi gizartea hozmintzen denik horregatik. Pello Salaburu

Soldaduak gorpuaren parean igaroz joan ziren, eta, tenienteen aginduei jaramon eginez, denen aurrean adibide legez utzia zen gorpuaren aldera lepoa bihurtzen zuten; legearen beste **erritu** tragiko bat. Edorta Jimenez

Bere bisita, **erritu** aldagaitz beraren arabera joan ohi zen goizero. Urtzi Urrutikoetxea

Biharamun arratsaldean Tom eta biok bazkaltzeko elkartu ginenean, ohartu ginen **erritu** txiki bat sortzeko bidean geundela. Oskar Arana

Berriz ohe ertzean eseri zen, besoak antxumatuta, egun berezietarako soinekoaz jantzita eta nolabaiteko handitasunez, **erritu** barregarri batean parte hartu behar balu bezala... besteak ez bezalako **erritu** bitxi batean, ez ezkontza eta ez hileta ez zen **erritu** batean. Ander Irizar

Erritu pagano eta mundutar baten begirunez. Xabier Olarra

Erritu hanefita lege musulmanak dituen lau interpretazio erituetako bat da. Patxi Zubizarreta

Ehizarekin batera beti leinuaren **erritu** erlijioso bat egoten zuan tartean. Xabier Olarra

XX. mendeaz geroztik hasi dira artearen historialariak Artearen sorrera esplikatzeko imitazioa edo erlijiozko **erritua** ez diren bestelako premia psikologiko batzuetan oinarritzen. Josu Zabaleta

Munduaren ikuskeran, printzipio etikoetan, portaera sozialetan, tradizioko sinesmen eta **erituetan**, nortasunaren zentzu orokorrean. Joseba Zulaika

Destilatzen hasi orduko, jakitun zara aspaldiko mendeek sakratuztaturiko **erritu** bat errepikatzen ari zarela, erlijio-ekintza bat ia. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erritu-keinu eta zeremonietan tematzen dira beste batzuk, aldi bakoitzean komeni denaz, doludunen bizimoduaz, bete beharreko lekuaz, kolore ilunez, unean uneko esakuneez arduratuz. Joxan Elosegi

Geldialdi hura **erritu** antzeko zerbait bihurtua zen, emazte arrotz baten besoetan iragan orduen ezabatzeko bezala. Elena Touyarou

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urte luzetan historian zehar errepikatu den gorteiatze **erritu** berbera. Berria - Kultura

Atsotitzen kasuan oso ohikoa da mundu guztian berdintasunak izatea, baina ehorzketa **errituak** oso desberdinak izan ohi dira herri batetik bestera.Taldeko baten bat hiltzen denean, batu egiten dira monje budista baten aitzindaritzapean bere sinesmenari lotutako hileta **errituak** egiteko. Berria - Kultura

Horietako gehienak sendatze **erituen** ingurukoak dira. Berria - Kultura

Erritu hanefita lege musulmanak dituen lau interpretazio **erituetako** bat da. Patxi Zubizarreta

6 ***errituzko*** *adlag*

Egun zikinen ondoren **errituzko** bainura joan behar ote zuen galdetu zion Taibelek. Koro Navarro

Kontakizun bateko **errituzko** osagaiak, frogapen batean dagoeneko onartutako proposizioak, solasaldi bateko esaldi konbentzionalak. Xabier Arregi

Ehiza, ordea, sakrifizioa duk oraindik ere, antzina-antzinako egintza erlijioso baten aztarna desitxuratu eta **errituzkoa**, gizakien sorreraren garaiko egintza lehen-lehengoa. Xabier Olarra

Urte Berri: hiru atseden-egun, **errituzkoak** eta ezinbestez hartu beharrekoak. Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beren errito (3); **errito bat** (3); **errito eta** (12); **errito hori** (3); **erritoak eta** (4); **erritoaren arabera** (3); **erritozko aurkezpen keinua** (13); **erritu bat** (4); **erritu eta** (3); **erritu hori** (3); **errituak egiteko** (3); **eta errito** (7)

---

erritual 1 *iz* komunitate edo talde batek arauturiko zeremonia; erritua.

Hamabiak jotzearekin, abantxu toki guztietan bezala, eltxaferuak, muxuak, dantzak..., ekidingaitz den **erritual** hori. Jose Angel Irigaray

1661ean haren gorpua atera zuten Westminster-ko Abadiatik, eta hil ondoko exekuzioaren **erituala** egin zioten. Berria - Harian

Antzinako agiriek diotenez, bada jarraitu beharreko prozedura bat, **erritual** bat, nolabait errateko. Alberto Ladron Arana

Jantziok, izan ere, kopuruz, luzeraz zein formaz **erritualak** zehatz-mehatz aginduak, esanahi mistikoz eta erlijiozkoz beteak baitira. Juan Garzia

Hala Cumhail nola Rory Mor eta Cormac gerlariak ezkutu hura euren ezpatekin jotzen hasi ziren, **erritualaren** atal bati jarraituz. Joanes Urkixo

Jakin nuen, sentitu nuen, **erritual** hura gizakiak kobazuloetan bizi ziren garaitik zetorrela, eguzkia eta ilargia jainkoak ziren aro ilunetatik. Alberto Ladron Arana

Ia afaloste guztietan betetzen zuen aitak **erritual** bera: ama ardoa erretiratzen hasten zenean, aitak, gaztari bultzatu beharraren aitzakiaz, azkeneko tragoa eskatzen zion. Anjel Lertxundi

Beste lau neska ere klitoria erauzteko **erritualetik** salbatzea lortuko du. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erritual ezkutu batean istripu larri bat gertatu eta aurpegia zeharo desitxuratuta geratu zitzaion. Joanes Urkixo

Sexua eta egia, horiexek azken **erritualaren** osagarri krudelak. Aritz Gorrotxategi

Gizon tripadunak dantzan ikustea nostalgiaren aldareko **erritual** baldarra iruditzen zaio. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Saileko lan-jardunean, hasieratik bukaeraraino, gorde behar den garbitasun-**erritual** miragarria nire aurrean justifikatzeko. Juan Garzia

Asmazio hutsa zen, iniziazio-**erritual** basatien bertsio moderno eta tekniko bat. Juan Garzia

Gure gizarte patriarkalaren egituretan dago, eta festa-**erritual** hau Irungo eta Hondarribiko nortasunaren, gizartearen erdigunean dago. Berria - Euskal Herria

4 *izond* erritu gisa gauzatzen dena.

Euskara oraindik ere gai **erituala** da. Berria - Euskal Herria

Elementu preziatuak (eta apika are ez hain preziatuak) oro ateratzeko, palingenesi **erritual** halako batean, zeinean soilik Casellik baitzuen, haren teknikari-bedel guztiz fidelak, parte hartzeko baimena. Juan Garzia

Mitoa izan daiteke, benetan, exortzismo-egintza **erritual** bat literatur narratibara pasatzea. Iñaki Mendiguren

"El Santo Niño de La Guardia"ren krimen **erritualaren** gezurbeltza. Joxe Azurmendi

Artista handi horien marrazkien beste aldean hildako bi arratoi ageri dira, eta Txinako tortura **erritualetako** argazkiak. Berria - Kultura

Makal zuria usadio **erritual** eta sakrifikal askotan erabiltzen zuten, hosto zurixkak dituelako, bere zur zuri-zuriarekin batera. Pello Zabala

Ez baitzituen bezeroak otoitz egitera deitu baino lehenagoko garbiketa **erritualak** egin. Jon Alonso

Animaliak hiltzeari buruz har daitekeen jarrera egoki bakarra, haienganako begirunea erakusten duen bakarra [...] **erituala** edo "sakratua" da. Xabier Olarra

Zeremonia derrigorrezkoa zen beretzat, ia **erituala**. Josu Landa

---

erritualismo *iz* erritua goraipatzeko joera gehiegizkoa.

Erritualismo, [...] Jainkoaren Lorategi holandarra, nondik Bera lerrozuzeneko askatasunean ibil daitekeen, belarra zapaldu gabe. Xabier Olarra

---

erritualistiko *izond* erritualismoari dagokiona.

Horrek esan nahi du ez naizela oraindik libratu, libratu izanaz harrotzen banaiz ere, gizaki ergelok hizkuntza idatziarekin dugun erlazio **erritualistiko** horretatik. Karlos Zabala

---

erritualizatu, erritualiza(tu), erritualizatzen 1 du *ad* erritual bihurtu.

Donostiarrek ere, Neolitoko euskaldunek bezala, lortua zuten soluzio existentziala, munstroarekiko borroka sokamuturrean **erritualizatuz**, jolas bihurtuz. Iñaki Iñurrieta

2 (era burutua izenondo gisa)

Oso modu **erritualizatuan**. Josu Zabaleta

Antropologiak gizarte ugarietan ikertu ditu subiranotasunaren "sistema dualak": batetik administratzaileen sistema juridiko/politikoa dago; bestetik apaizen sistema **erritualizatu**/mistikoa. Joseba Zulaika

---

erritualizazio *iz* erritualizatzea.

Gola zen estrategia elaboratuaren, desira aseezinaren, **erritualizazio** ondo markatuaren amaiera, salbuespen puntua, joko guztiari zentzua eta gozamena ematen ziona. Joseba Zulaika

Hau da: **erritualizazioa** bilatu zuten, denborarekin jokatuz. Berria - Kultura

---

erritualki *adlag* era erritualean.

Eta bestetik, eskuz idatzitakoa zenez, ez nuen konputagailu aurrean eserita pantailara ekartzeko ahaleginean obsesioa **erritualki** entretenitzeko modurik ere. Ramon Saizarbitoria

---

erituzale *izond* erituen zale dena.

Jon Jon injinerua da eta ni berriz **erituzalea**, beraz gora abiatu gara. Harkaitz Cano

Frantziarrek amerikarrei egindako oparia da Askatasunaren Estatua, eta egin beharreko ilada luzeak ez du haren barrualdean ikusten dena konpentsatzen, baldin eta injinerua edo **erituzalea** ez bazara behintzat. Harkaitz Cano

---

erriz ik **erris**.

---

errizino

1 ***errizino olio*** akain-belarretik ateratzen den olioa.

momentu batetik bestera agertuko dira berriro kooperatibak eta herriaren etxeak erretzen dituzten ekintza-eskuadrak, eta jendeari egurra eta **errizino-olioa** ematen hasiko dira. Koldo Biguri

Maitagarrien Azpila, gogoratuko duzuenez, huntzez beteta dago (hortik egiten dute **errizino-olioa**), han eta hemen hazten diren lorez beteta. Julen Gabiria

Guztietan ere antzeratsu edukiko zituzten: umiliazio handiak, ilea mozteak, bortxaketak, **errizino olioa** edanaraztea. Jokin Urain

---

erro *(ETCn **1.651** agerraldi)* **1** *iz* landareen beheko zatia, berez lurpekoa, finkatzeko eta elikatzeko gaiak hartzeko balio diona. ik **sustrai; zain**[1].

Adarrei lotuta zabiltza, **erroak** utzirik! Jon Muñoz

Zuhaitzaren alimaleko **erroaren** gainean jarriak ginela biak, desiraren zorionak hartu ninduen osoki. Piarres Aintziart

Goratasun gaitzeko haritzak bi bazterretan, **erroak** lurrean barna, zeruari buruz igaiten dira. Michel Oronoz

Belea pausatu da pagoaren ageriko bi **erro**, bi zainen artean etzana dagoen goroldiaren gainean. Piarres Aintziart

Sobera ditu **erroak** lurrean barna, eta adarrak lodi eta azkar, ez baditu ere oraino hanbat urrun hedatuak. iInbidia ororen aita den deabruak jada zeruraino heltzen zen zuhaitza **errotik** moztea pentsatu zuen. Xipri Arbelbide

Jakitearen sistema zuhaitz baten pareko ei da: metafisika da **erroa**, fisika enborra, adarrak zientzia espezializatuak (mekanika, fisiologia, psikologia) eta fruituak diziplina praktikoak (teknika, medizina, etika). Askoren artean

Ikastolen Konfederazioak ere ikusi zuen egoerari **errotik** heldu behar zitzaiola. Berria - Harian

Basoarte amaigabea, zarratua, tarteka indiar txabola multzo bat edo beste, **erro** agerizko zuhaitzen pean ostendurik. Joxe Austin Arrieta

Topaketa horretatik sortu zen japoniar idazkera berezia: batetik, 50 inguru silaba-zeinu sortu zituzten hizki txinatarrak zeinu biribiletan sinplifikatuz, hiragana; bestetik, hizki edo **erro** txinatarrak jaso zituzten zuzenean, kanji. Ibon Uribarri

2 irud/hed

Zidanek berak Kabilian ditu **erroak**, eta aniztasun kulturalaren beste eredu bikaina da. Berria - Kirola

Giza arrazoimenarentzat ezinbestekoa den zientzia, hain zuzen, bere enbor berri guztiak moztuak izan daitezkeen arren, **erroak** ezin erauzi zaizkion zientzia. Ibon Uribarri

Arreta obsesiboaz behatzen zuen, goizetik gauera, bere ileen **erroa**, bere biloen egia azaltzeak, artifizioz biluzturik, eragingo zion kolpearen espektatiba morbidoki dastatuz. Jon Alonso

Hamabost egunetik behin, mutikoak **erroraino** mozten zuen ile hori eta uhintsua, eme-tankerakotzat jotzen zuenez. Xabier Olarra

Gilaz gora, mastak **erroetatik** erauzirik eta haize oihalak urraturik. Edorta Jimenez

PSOEk «konponbide bila terrorismo islamikoaren **erroetara**» joan behar dela dio. Berria - Euskal Herria

«Gatazkaren **erroetara** jo eta pragmatikoak izateko unea heldu da», dio Otegik. Berria - Euskal Herria

Mendi- **erroetaraino** jaitsi nintzen, lur azpiraino. Elizen arteko biblia

Nafarroan gaindi ibiltzen zela artetan, familiaren **erroen** atzetik. Piarres Aintziart

Herri batetik bestera joatera behartuak, polizia-etxe batetik bestera, ez lan eta ez **erro**, familiarik gabe, etxe gabe. Fernando Rey

1956an Hungarian herri iraultza bat izan zen, boterean zegoen Alderdi Komunistak **erroz** zapaldu zuena. Pello Salaburu

Nire oinarrizko - **errozko**, esango nuke- aritzea gogoetetan, gogoetan, gogorapenetan datza. Jenaro Garate

Borreroak gillotinaren xafla metalikoa askatu zuen, burua **errotik** mozten zidala.Eutsi egin behar genion, bai, agintariek **errotik** erauzi nahi izan ziguten ametsari. Joan Mari Irigoien

Errotik atera ditu zenbait nazio, eta apalak landatu haien ordez. Elizen arteko biblia

Mundua zaigu **errotik** irten. Juan Garzia

Gizonak trumilka, lerroan oinez, indarrik gabe, uniforme xuri marraduna soinean, buruan ilerik gabe, begiak **errotik** ateratzeraino argaldurik, hil biziak iduri. Eneko Bidegain

Hondamendira zuzen-zuzen amildu nahi ez badugu, **errotikako** aldaketa eragin behar diogu ekonomia ulertzeko moduari. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gure lurralde ezin-ahantzizko honetan gertatu istorioak, eta oroz gainetik gure mintzaira, honen bidez baititugu azkar atxikitzen gure **erroak** eta honek baitigu moldatzen adimendua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nolako **erroak** dituen gizonaren bihotzean boterearen goseak, herrak, gerlak. Michel Oronoz

Maltzurtasunak guregan buruarinkeriak edo zuhurtzigabekeriak baino **erro** sendoagoak egiten ditu. Fernando Rey

Ipar-Ameriketako euskal **erro** zaharrenak kausi ditazke Saint-Pierreeta Miquelonbi ugartetan. Herria

Erreforma protestanteak **erro** sendoak zituelako bertan. Koldo Zuazo

Garai hartan, lau toki sinboliko ezberdinetan bizi nintzenez, **erro** sentimentalik gabekoa nintzatekeen, nehork ez ninduen espreski maitatzen. Itxaro Borda

Horiek ez zakitek zenbat **erro** dituen olagarroak! Koldo Izagirre

Gaur hor eta bihar han, baina **erroak** inon bota gabe. Anjel Lertxundi

Behin maitasuna erne denean, hazten inoiz gelditzen ez diren **erroak** botatzen ditu. Josu Zabaleta

Bikote kosmopolita da, bere **erroen** bila etortzen. Berria - Kultura

Weasley bikiak eta Lee Jordan kili-kili egiten ari zitzaizkion ur-ertzean eguzkitan zegoen olagarro handi bati **erroetan**. Iñaki Mendiguren

3 gontza.

Burdinazko ateak eta altzairuzko **erroek**, ordea, ederki eutsi zioten. Agustin Otsoa

Sarraila eta **erroak** olioztatzeko. Jon Muñoz

Ez tanda bat entzun zen, atea bere **erroetan** dardarazi zuena. Iñaki Mendiguren

Halakoxe indarrez jo zuten atea, ezen bere **erroetatik** garbi-garbi atera eta gortzeko moduko hotsaz lurrean geratu zen oso-osorik. Iñaki Mendiguren

Bikilarena iraultza atletikoa da, lasterrak ez dio lizunari astirik uzten **erro** dadin. Markos Zapiain

Ate- **erroen** asotsa, gorputz bizi bati sabel egiten zaionekoa. Aingeru Epaltza

4 matematikan, zenbaki batez mintzatuz, zenbaki hori lortzeko bere buruaz*n* aldiz biderkatu behar den zenbakia; erroketaren emaitza.

Ekuazioak bi **erro** ditu. Jon Muñoz

3. mailako ekuazioak 3 **erro** ditu beti; 2. mailakoak, berriz, 2 ditu beti. Jon Muñoz

Mila berrehun eta berrogeita hamairuren **erro** karratua. Anton Garikano

8 092 772 751ren **erro** kubikoa. Jon Muñoz

2ren **erroaren** irrazionaltasuna absurdoaren bidez frogatua. Beraz, (q/2) 2 p/3) 3 negatiboa denean, ezin erabilizkoa da formula, eta, beraz, ez da **errorik**! Jon Muñoz

5 (izenondo eta izenlagunekin)

Ekuazioen ebazpenak kalkulatzea, lau eragiketak eta **erro** karratuak, kubikoak, etab. soilik erabilita. Jon Muñoz

Polinomio baten **erro** karratua. Jon Muñoz

Gure aroa baino mende bete lehenago idatzia eta **erro** kuboen kalkulua azaltzen zuena. Jon Muñoz

Erro kubikoa ateratzea ez da inoiz gauza erraza izaten. Jon Muñoz

Zenbaki bat bilatu, bere **erro** kubikoari erantsirik 6 emango duena. Jon Muñoz

Unitate negatiboaren irudizko **erro** bat! Jon Muñoz

6 (hitz elkartuetan)

Ekuazio baten **erro** kopuruari zegokion galdera orokor bat proposatu zen. Jon Muñoz

7 oinarria, zimendua; jatorria, iturburua. ik **sustrai**.

Bulko horretan dute **erroa**, beren sorburua. Joan Mari Lekuona

Horretan du **erroa** senarraren aginpideak. Andres Urrutia

Bistan da gizamin absurdo honek sinismenean dituela bere **erroak**. Patziku Perurena

H5N1 birusak mutatu eta pandemia abiatzea saihestu nahi dute, gaitzari **erroan** ekinez. Berria - Gaiak

Ekonomiaren kontzepzio klasikoak -edo laburtuz, ekonomia klasikoak- Adam Smith-en obran ditu **erroak**. Iñaki Heras

Galizian sortua izanik ere, kubatar **erroak** dituela ziur dago Ramon Chao. Berria - Mundua

Goresmenak Kamietako familia guziari bai eta ere gaurko egunean kausitzen dituzten neke guzien gatik gure laborantzaren **erroak** azkar begiratzen dituzten laborari guzieri. Herria

Ezen *ekonomia* terminoak bi greziar hitzen sinbiosian baititu **erroak** : *oikos*, etxea, eta *nomos*, gobernua edo gidaritza. Iñaki Heras

Garzonek kalean darabilen bide bera hautatu bide baitu ministroak: gaitzaren **errora** jo ordez, kontrol eta zigorrak zabaldu, orokortu. Joxerra Garzia

Biologiaren **errotik** beretik dator aniztasun eta desberdintasuna. Juan Garzia

Jakintza guziaren **erroan** dago analogia zaharra gorderik, menderik mende, gizaldeen harat honatak nahastu eta edertua, oraino gure irudimen ahula harritzera datorkiguna.Berarekin bere gela itxia eraman zinan, Ziur aski, ezagumenaren egituran bertan, kontzientzian, identitatean bertan gertatzen zitzaion alterazio **erro-errokoa** adierazten zuen. Patziku Perurena

Alegia, erlatibistak bilakatu gara **erroetaraino**. Joxe Azurmendi

Bada mairurik kostaldean, **errotikako** konfiantza falta baten herri-esapide historikoa. Jon Alonso

8 hitzez mintzatuz, aurrizki, artizki eta atzizkiak kendu ondoan gelditzen den zatia.

Halaber, **erroa**, bere aldetik, ez da autonomoa; atzizki batekiko konbinaketari esker baizik ez da existitzen. Isabel Arrigain

Arazo fonetikoak gabe, **erroa** bera aldatzen da euskalki batetik bestera. Koldo Zuazo

Pag-anus sortzeko, analogiak erro bat *(pag) eta atzizki bat (–anus)* lotu ditu. Hitz asko banako konplexuak dira; haietan erraza da azpibanakoak aurkitzea (atzizkiak, aurrizkiak, **erroak**). Isabel Arrigain

Horren adibide dugu ondorengo singular/plural parea, Rad/Räder, non **erroko** bokala ondorengo atzizkian datorrenaren palataltasunera asimilatzen den. Lourdes Oñederra

Hitzak aldaera asko baititu bazterretan: *oale, ogale, ozal, ozala, ozale, pozale, bozale*.., eta etimologia ilundu egiten digute; ez baitirudi guziek **erro** bera dutenik. Patziku Perurena

Hitz horren **erro** gramatikalak (-str) beste adiera bat, beste esanahi bat, ere badauka. Xabier Kintana

Latinez, *dominus, domini, domino* eta abarretan, elementu komun batez sorturiko elkartze talde bat dugu,*domin-* izen-**erroaren** inguruan osaturiko elkartze talde bat. Isabel Arrigain

Arazo fonetikoak gabe, **erroa** bera aldatzen da euskalki batetik bestera. Koldo Zuazo

Nola izan diren ahalezkoak aldi berean edo hurrenez hurren (hautaketa alternatiboaren, aldaketaren edo ordezkapenaren forman) izan aditzaren adiera ezberdinak, kopularenak, aditz **erroarenak** eta hondarkiarenak. Xabier Arregi

· Hylo delakoa, zeina, gauza bitxia, baltsamaturik aurkitzen baita alkali-**erroen** desinentzietan: metilo, butilo, eta abar. Juan Garzia

9 errapearen buruetako bakoitza; titiaren burua.

Bere bi titi borobilen **erroak** ongi agerian zeuden. Aitor Arana

10 *adkor* zakila.

-Eragiok mutil, hire **erro** bero horri -hasi da kantuan Xereal-, beroa beratu artian, beroa beratu artian. Iñaki Iñurrieta

Erroa zut, gogoa non. Iñaki Iñurrieta

"Maite zaitut" esaten dio berriro, "zuk ere maite nauzu", orain eskuaz **erroa** ukitzen, "ikusten?", begiak bilatzen dizkiola. Iñaki Iñurrieta

· Bere gorputz ederra ikusteko aukera izan nuen horrela, ipurtestua eta bizkarzabala baitzen, gorputzean ile gutxikoa eta zakil-**erro** handi samarrekoa. Aitor Arana

11 ***errotik*** *adlag* sakonki; erabat.

Errotik sanoak ziren, gorputzez bezainbat buruz eta bihotzez. Daniel Landart

Natura osoa da **errotik** gupidagabea eta xahutzailea. Txillardegi

Liburu argia eta **errotik** interesgarria. Herria

Batzu arras alde, besteak **errotik** kontra, horra hor ere eztabada-bide bat ederra! Herria

Lantegia **errotik** martxan da, benefizio handiak eginez. Herria

Errotik etenda geratu da erasoa. Jon Muñoz

Hartan zituen **errotik** finkatuak bere oroitzapen hunkigarri gehientsuak. Patziku Perurena

Eguneroko intziri etsiari jarraitu ohi zitzaion tristura latza, nigandik **errotik** desagertua zela nabaritzen hasi nintzen. Txillardegi

Urtero ohi legez, badiako paisaia **errotik** zen aldatua irail-urrien arteko muga hartan. Iñaki Iñurrieta

Gure sentimenduak **errotik** lotuak direla zentzuen gizatasunari. Patziku Perurena

Errotik pilotari atxikia eta bereziki luzeko jokoari, liburu eder bat bazuen preseski argitaratua gai hortaz Atlantica argitaletxearen bitartez. Herria

Aldatu, **errotik** aldatu zuen, hala ere. Jon Muñoz

Etxeak **errotik** miatu zituzten. Berria - Euskal Herria

Euskal nazionalismoa hondoratu, hankaperatu eta **errotik** erauzi behar da; eta gero hitz egingo dugu. Jokin Urain

Errotik kritikatzen dute logika produktiboa eta kontsumista. Iñaki Heras

Dakidana da hor atzean "gure" independentziaz ixuri zaizkidan burutazio ergel horiek eta horien antzekoak oro **errotik** zapuzten ditudala eta baztertzen. Iñaki Segurola

Urtero ohi legez, badiako paisaia **errotik** zen aldatua irail-urrien arteko muga hartan. Iñaki Iñurrieta

Ikusmena berreskuratua dutenei, nerbio-sistemaren funtzionamendua **errotik** aldatzea eskatzen die ikusten ikasteak. Xabier Olarra

Ezkorra haiz, Ez naun hainbestera iristen, **errotik** eszeptiko izatearekin konformatzen naun. Jon Alonso

· **Erro-errotik** aldatu zen kalkuluaren izaera bera. Jon Muñoz

Ulertu egin nuen, **erro-errotik**, poemak adierazi nahi zuena: "Bizitza da handiena, galtzea litzateke galtzea dena". Bernardo Atxaga

Ezin dut irudika **erro errotiko** sineste senezko hori gabeko pentsalaritik, ez izpiritu azkarrik. Patziku Perurena

Horrekin batera, **errotikako** aldaketak gertatzea funtzionamendu psikologikoan, nortasunean, identitatean. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten erro (9); **baten erro karratua** (6); **bere erro** (6); **bere erroak** (20); **bere erroen** (5); **bere erroetan** (5); **beren erroak** (4); **beste erro** (3); **bi erro** (3); **da erro** (3); **de erro** (3); **ditu bere erroak** (3); **ditu erroak** (7); **dituela bere erroak** (4); **du erro** (3); **ere erro** (3); **erro azkarrak** (12); **erro azkarrak eginak** (3); **erro bat** (13); **erro bera** (3); **erro bereko** (3); **erro den** (4); **erro ditu** (4); **erro erroan** (5); **erro erroan** (5); **erro errotik** (27); **erro errotiko** (4); **erro eta** (19); **erro iun** (13); **erro iun nebko** (11); **erro izan** (3); **erro karratua** (15); **erro karratuak** (5); **erro karratuaren** (3); **erro karratuen** (4); **erro kubikoa** (4); **erro nafarroako** (5); **erro nafarroako ezker** (5); **erro neb** (3); **erro sakonak** (6); **erro sendoak** (4); **erro x** (3); **erro zahar** (5); **erro zaharrak** (4); **erro zuriak** (3); **erroa da** (4); **erroa eta** (5); **erroak ateratzea** (3); **erroak azkar** (4); **erroak**

barna (3); erroak dituen (4); erroak eta (16); erroak eta hegalak (3); erroak non (4); erroen bila (5); erroetara jo (4); erroetara jo eta (3); errorik ez (6); eta erro (20); eta erro bat (3); eta erroak (8); eta erroetarik (3); eta ion erro (3); euskal erro (5); gaitzaren erroak (3); gatazkaren erroetara (4); gure erroak (3); haren erroak (4); hark erro (3); hark erro errotik (3); horren erro (3); horren erroak (5); ion erro (29); ion erro iun (11); ion erro nafarroako (4); ion erro neb (3); jon erro (8); n erro (3); negatibo baten erro (5); ororen erro (3); sustraiak erroak (12); zenbat erro (4); zimendutik eta erroetarik (3)

arazoari errotik (3); aroa ere errotik (3); aroa errotik (3); aroa errotik alde (3); batzu errotik (3); begiak errotik (3); begiak errotik ateratzeraino (3); bere burua errotik (4); beti errotik (3); bizia errotik (4); bizimodua errotik (4); bizitza errotik (4); burua errotik (7); da errotik (5); denak errotik (4); egoera errotik (3); egoera errotik aldatzeko (3); ere errotik (5); ere errotik alde (4); erro errotik (27); errotik abertzalea (4); errotik aldatu (40); errotik aldatu behar (10); errotik aldatu beharko (6); errotik aldatu ezean (3); errotik aldatu zen (4); errotik aldatuko (7); errotik aldatzea (6); errotik aldatzeko (9); errotik aldatzeko eskatu (3); errotik alde (10); errotik arbuiatzen (4); errotik atera (17); errotik atera eta (3); errotik aterako (6); errotik ateratu (3); errotik ateratzeko (3); errotik ateratzen (5); errotik ateratzeraino (3); errotik atxikia (16); errotik atxikia da (3); errotik atxikiak (3); errotik erauzi (4); errotik eta (7); errotik euskalduna (5); errotik euskalzalea (4); errotik ezagutzen (8); errotik fededuna (3); errotik heldu (4); errotik kendu (8); errotik kentzea (4); errotik kentzeko (4); errotik konpondu (4); errotik kontra (4); errotik kritikatu (3); errotik kritikatzen (5); errotik maite (7); errotik moztea (4); errotik mozteko (5); errotik mozten (4); errotik moztu (25); errotik moztu du (3); errotik moztu nahi (6); errotik moztu zuen (6); errotik moztua (3); errotikako aldaketa (3); erroz gora (5); eta errotik (23); euskal herriari errotik (3); guziak errotik (4); guztiak errotik (5); hark erro errotik (3); herria errotik (3); herria errotik maite (3); herriari errotik (3); herriari errotik atxikia (3); hizkuntza politika errotik (5); hori errotik (5); horrek errotik (3); hura errotik (4); legea errotik (5); legea errotik aldatu (4); oro errotik (4); politika errotik (9); politika errotik aldatu (6); politika errotik aldatzeko (3); zen errotik (3)

---

errobera *(ETCn **90** agerraldi; orobat **errubera** ETCn **99** agerraldi eta **errubeda** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **errobera** agertzen da)* **1** *iz* gurpila.

Mendian, gizonezkoek **errubera** edo gurpil handi bat prestatzen zuten, dena lastoz ondo estalita, ondo lotu eta txirikordatuta. Pello Zabala

Zaldi karroak, asto karroak, behientzat apur bat arinagoak, idientzat astunagoak, danerikoak, **errubeda** radiodunak, radio bakoak, danak egin dodaz nik. Xabier Amuriza

2 ***suzko errobera***

Herri guztietan bezala zure herrian ere, esanen didazu, abenduko azken egunak gauerdia eta bere hamabi ezkilak ekartzen dituelarik: bolanderak, **suzko erroberak**, Japoniako bonbak, hiru buruko txapliguak, umeak elkarri petardoak jaurtika, ehiztariak leihoetarik zerurantz kanoi bikoarekin. Koldo Izagirre

Bilboko jaietan **suzko erroberek** eta txapliguek erabat ikaratzen dute. Arrazoia **suzko errobera** bat da. Gotzon Garate

Hiri gainbeheratu hartako ohiko ixiltasun hits eta zapala, ohiko festa-egun seinalatu hartako ohiko **suzko erroberen** danbatekoek hautsi zuten bat-batetan. Iñaki Segurola

---

erroberatzar *(corpusean **erruberatzar** soilik) iz adkor* gurpil handia.

Erruberatzar horren ardatzean, bi aldetatik, metro-metroterdiko egurrezko kirten heldulekuak ipintzen zizkioten, bi gaztek eroso heltzeko modukoak, malkarrean behera eraman behar baitzuten biribilka, erruberaren lastoari su eman eta gero. Pello Zabala

---

errobinet *iz ipar* txorrota, dutxulua.

Bazkaltzen ari zira goxoki, dutxulua edo **errobineta** tturtta-tturtta entzuten duzu. Menane Oxandabaratz

Gero, mugarik gabeko etxazpi haietan, **errobinet** guzietatik edatera entseatzen gara. Marzel Etxehandi

Biharamun goizean atera gintuzten gure geletatik, lehen aldikotz: ura burrustaka zarion **errobinet** batetara joan ginen. Marzel Etxehandi

---

errobot ik **robot**.

---

errobotika ik **robotika**.

---

errobotizatu ik **robotizatu**.

---

errodadura *iz* itzulikatzea.

Brava daramaten bogie edo **errodadura** sistemetan, gurpilak neurri desberdinetara egoki daitezke, automatikoki. Berria - Ekonomia

Burdinbide batetik bestera, eta neurri desberdinekoak hainbat dira, ez dagoela zertan lokomotorea aldatu edota **errodadura** sistema berri bat jarri. Berria - Ekonomia

---

errodaje **1** *iz* filmatzea, filmaketa.

Beste ikasgai askoren artean Ipar Irlandako prozesuak erakusten digu, film baten **errodajean** gertatzen den bezala, protagonistek pazientzia handia behar dutela. Berria - Harian

Donostiako *Film Commission* bulegoak 91 ikus-entzunezko lanen **errodajeak** bultzatu ditu Donostian eta bere inguruetan, 2003an sortu zenetik. Berria - Kultura

Charles Chaplinek, *The great dictator* filmaren **errodajeari** buruz. Harkaitz Cano

Zurean, zure filmean, **errodajea** hasi dela ohartu zara. Lourdes Oñederra

2

Beste 24,48 milioi **errodajearen** bitartez fakturatu zituen, 8,06 milioi trenak konpontzen, 12,35 milioi trenbideen piezekin eta, azkenik, 19,47 gainontzeko negozioarekin. Berria - Ekonomia

---

errodamendu *(orobat **arrodamendu**) iz* bola sorta bana dauzkan bi zilindro zentrukidez osaturiko kojinetea.

Biraka dabilen ardatz batek jaso dezake olioa, eta bere **errodamendua** lubrikatzeko erabili. Irene Aldasoro

Olioontzi bat eman zioten eta makinen **errodamenduak** olioztatu eta garbitu behar izaten zituen. Fernando Rey

Hara zer egiten duen diseinugileak: **errodamenduak** koipezko geruza mehe batez babesten saiatu. Metalezko, plastikozko eta bestelako gai gogorrez egindako **errodamenduekin** egiten dituzte ingeniariek probak, eta gure gorputza osatzen du-ten material bigunek ez dute batere antzik haiekin. Irene Aldasoro

Radio Nacional de España irrati kateak Gasteizen duen egoitzari margo gorria eta **arrodamenduak** jaurti zizkioten ostegun gauean, irratiko iturriek jakinarazi dutenez. Berria - Euskal Herria

---

errodatu, erroda(tu), errodatzen **1** du *ad* itzulikatu.

Zer fluidoak osagai leunak eta borobilak dauzka, noski, baina hauei gorputz latz eta mingarriak nahasten zaizkie; ez dago, ostera, hauek elkarri gakoan eutsi beharrik; latzak izanik, globo itxurakoak ere badira, noski, **errodatuz** batera, sentimenak zauritzen dituztenak. Xabier Amuriza

2 filmatu.

Ostiralean, lehen filmak **errodatu** zituzten zinemagileen lanak ikusi ahal izango dira. Berria - Kultura

Sekula onartu ez dudan heriotzaren kontzeptua ulertzen lagundu dit film hau **errodatzeak**. denok jakin dezagun aukeratuak izan gaitezkeela ospetsuak izateko areto barruan **errodatuko** den telebista programa batean. Berria - Kultura

«Talde osoa hartu» azaldu du, «kamerak eta **errodatzeko** material guztia barne, eta zain geratu ginen. Berria - Kultura

Funahashi Atsushi japoniarrak Arizonako basamortuan **errodatutako** Big River, Takeshi Kitanoren ekoizpena eta Jim Jarmusch maisuaren oihartzuna duen *road-movie*-a. Berria - Kultura

Bi film **errodatu** eta etxolaren ondoko mugarri zibernetikoa eguneratu artean. Itxaro Borda

El clan de los irlandeses filmeko eszenaren bat bertan **errodatu** omen zuten. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errodatu zuen** (4)

---

errodela ik **erredola**.

---

errododendro *iz* hosto iraunkorreko eta lore ikusgarriko zuhaitz edo zuhaixka, lore gorri, arrosa eta zuriak ematen dituena eta apaingarri gisa erabiltzen dena *(Rhododendron ferrogineum)*.

Errododendroak lorea bai, baina ez du galtzen hostorik. Hasier Etxeberria

Har horrek ez daki **errododendrotik** bi metro urrunduta bizitzen. Hasier Etxeberria

Mariputzuko zubi inguruetan ibili nintzen begira, han ez dago **errododendrorik** bazterretan. Hasier Etxeberria

Bi hitz esan eta desenkusatzeko harengana bideratu zarenean ikusi dituzu loretan eder, intxaurrondoa eta etxearen arteko itzalean, sei **errododendro** lerden. Hasier Etxeberria

Haien ametsa erdiko soropila zeharkatzea zen edo plazaren hesiaren ondoko gorosti eta **errododendro** trinkoen azpitik arrastaka ibiltzea. Karlos Zabala

Inoiz inon ikusi gabeko landareak ere aurkitu dituzte, besteak beste, bost palmera espezie berri eta **errododendro** klase berri bat. Berria - Gaiak

---

errodopsina *(orobat **rodopsina**) iz* erretinako bastoien diskoetako proteina.

Makilek eta konoek pigmentu molekulak dituzte (4 milioi inguru makila bakoitzak); molekula horiek badute gai bat, **errodopsina**, argi-quantumak zurgatu eta erreakzio kimikoz beste bi substantziatan deskonposatzen dena. Josu Zabaleta

Zenbat eta fluxu hori handiagoa izan, orduan eta erretinako zelula gehiagori eragiten die, **errodopsina** deskonposatzeko erreakzio gehiago gertatzen dira, eta nerbio-seinalea indartsuagoa izaten da. Josu Zabaleta

Argi gehiago bidaltzen ez baldin bazaio, berriz, erreakzioa alderantzizkatu egiten da, eta berriro osatzen da **errodopsina**. Josu Zabaleta

Hiru ordu laurden inguru egon behar da ilunpetan erretinako **errodopsina** molekula guztiak berriro osa daitezen. **Rodopsina** da (*ikusmen-purpura* ere esaten zaio batzuetan) horretarako material sentikorra. Josu Zabaleta

---

errodura *iz* matematika eragiketa, zenbaki jakin baten erroa kalkulatzeko erabiltzen dena.

Oro harrezko handitasunaren eraiketa ororen izendapen jakin bat aukeratzen du (zenbakiak), batuketa, kenketa, **errodura** eta abar diren bezala. Ibon Uribarri

---

errogabeko *izond* errorik ez duena.

Maurrasen luman Erromantizismoaren gaitzespenik gaitzena da hori: edozein haizetakoa, **errogabekoa**, superfiziala esan nahi du. Joxe Azurmendi

---

errogatiba *iz pl* Jainkoari zerbait premiazkoa eskatzeko egiten den otoitz sorta.

Salamancan **errogatibak** egin zituzten behin eta berriz, eurite haiek gelditzeko eskatuz. Pello Zabala

1402an, Igualadan, Bartzelona alde horretan, **errogatibak** egin zituzten egun batzuetan segido, lehorte makurrean murgilduta zeudelako. Pello Zabala

Bizpahiru uholde kontu dauden tokian, **errogatibak** egiten dira gero eta usuago. bai Alloztarrak eta baita Huitzitarrak ere, erromeria egiten dute apirilaren 16an, **errogatibak** eginez. Pello Zabala

Mende honetako kontuen artean, **errogatiba** konturik apenas ageri zaigun. Pello Zabala

---

errogatibaka *adlag* errogatibak egiten.

1567ko apirila nahikoa makurra izango zen: Apirilaren 1ean, Oloten ditugu **errogatibaka**; ez ziren gauzak asko konponduko, zeren 27an, artean Bartzelonan larri ziren eta erreguka haiek ere. Pello Zabala

Elizkizunak (behin eta berriz ageri direnak, bere forma eta aldaera guztietan: **errogatiba**, sermoi, letania, pazkoazko, bezpera, konjuro, sermoi, prozesio, hileta... garai batean jendearen bizimodua arautzeko elizak izandako aginte osoaren seinale). Xabier Mendiguren Elizegi

---

errogazione *iz pl* errogatibak.

Salbatore aintzineko hiru egunetan ziren -eta egiten oraino leku batzuetan- **errogazioneak** edo lurraren otoitz haundiak. Herria

Aurten ere begiratu ditugu gure ohiduretan diren **errogazioneak**. Herria

Ekainean, idorte garaia, egunero **errogazione** beilatxoak egiten dira AndreMarizuri ermitara. Herria

Errogazioneko proosioneak ez dira gehiago egiten bainan aurtengo nahasi mahasi haundiek inguramenaren kontra ereman dituzte nere gogoetak gai huntara. Herria

---

erroilo ik **erroilu**.

---

erroilu *(orobat **erroilo** g.er. eta **errollo** g.er.)* **1** *iz* bobina; bilkaria.

Tronuan eseria dagoenaren eskuineko eskuan **erroilu** moduko idazki bat ikusi nuen, bi aldeetatik idatzia eta zazpi zigiluz joa. Elizen arteko biblia

Hartu idazteko **erroilu** bat eta idatzi bertan Josiasen garaitik hasi eta gaurdaino Israeli, Judari eta beste nazio guztiei buruz adierazi dizkizudan mezuak. Elizen arteko biblia

Edo komuneko papera amaitzean **erroilo** berria bere lekuan ez jartzeko zuen ohitura absurdua. Iban Zaldua

Orduan, Nataniasen seme Jehudi bidali zuten Barukengana -Natanias, Xelemiasen seme eta Kuxiren biloba zen-, herriaren aurrean irakurritako **erroiluarekin** etortzeko esatera. Elizen arteko biblia

Zoaz zeu hurrengo barau-egunean eta irakurri tenpluan, herriaren aurrean, nik esanik **erroiluan** idatzi duzun Jaunaren mezua; irakurri Judako hirietatik etorriko diren guztiei ere. Elizen arteko biblia

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Begira! -Hermionek paper- **erroilu** bat hartu zuen botilen ondotik. Iñaki Mendiguren

Sailean zeuden komuneko paper- **erroiluak** izan ziren, besteak beste, ezagutu zituen lehenbiziko gauzak. Merkatariak galdu egiten zituen bere diru **erroiluak**. Xabier Olarra

Billeteak, billete- **erroilu** bat. Lopez de Arana

Konketan pilatuta zeuden gauza batzuen aztarna bustiak: diruzorro bat, koaderno bat, arkatzak, labana bat, bi pelikula- **erroilu**, petaka txiki bat. Lopez de Arana

Zorro batetik pelikula- **erroilu** txiki bat atera eta makinan jarri zuen. Fernando Rey

Gero, attrezzoko arduradunari eskuetatik kendu zion jarraitu beharreko musika- **erroilua**, seinalea jaso zuen eta argiunera irten zen. Lopez de Arana

3 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Paper- **errollo** pila handiak. Jokin Urain

4 (pelikulak biltzeko)

Polizia, armiarma jaso eta gero, ni nengoen establezimentuan sartu da bere kamerarentzat **erroilo** bat erostera. Xabier Olarra

Padre Alvarezek berehala argitu zuen sala, eten zuen filma, jaso zituen bere **erroiloak** latazko kaxa borobiletan eta alde egin zuen. Joseba Sarrionandia

Filmaren **erroiloak** latazko kaxa borobiletan sartu, latok besapean hartu eta alde egiten zuen, inori hitzik ez kasurik egin gabe, klaustroan barrura. Joseba Sarrionandia

5 *adkor* kontua.

Denok ginen batarekin zein bestearekin konplexurik gabe eta **erroilo** txarrik gabe oheratzeko eta gozatzeko gauza, gure artean bi bikote osaturik egonda ere. Aitor Arana

---

erroitz *iz* amildegia.

Mai eta biok besarkatu ginen, elkarren gorputzak tinkatuz, **erroitz**, holtz, harkaitz, zernaitz eta ordoki bakoitza daldara araziz. Itxaro Borda

Ez ziren sekulan bide ederrak izan, toki txarrak zirelakotz, alde batetik **erroitzak**, bestetik harrokak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Txara, **erroitz** eta oihan artetik jarraitu zion, ezagutzen ez zituen basoetatik igaroz. Josu Zabaleta

Hemen gaindi diren bide, bidexka, erreka, mendi tontor, mendi lepo, zubi, **erroitz** eta edozein tokik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gero patarrari beheiti jaustea, lan horrek ere bere nekea baitzuen, **erroitzak** hor berean izanez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Negu hartan, ordea, ahuntza **erroitzean** amildu, azkonarrek artoak eta babarrunak jan, mahats apurrak izoztu, su izugarri batek burutu zuen etxaldeko hondamendia. Pablo Sastre

Arnegiko bidean, bere betun-kamiunarekin **erroitzarat** erori da, han berean gorputz gelditzu. Herria

Ke bilakatu beharrak ginen eta azken hautsak haizeak eremanen zituen, Buchenwald-eko **erroitzetan**. Michel Oronoz

Bestela, saihetsean joz gero, irauli egingo zen ezinbestean eta bidearen ezker aldeko **erroitzetik** behera amildu. Karlos Zabala

Zonbeit emaztekik ez zuten nahi so egin ere, eskuineko **erroitz** izigarriari. Herria

Erroitz ikaragarri batetik jauzi egitea edo leize zulo hondogabe batera erortzea legez imajinatu izan dut inoiz heriotza. Jokin Urain

---

erroitzar *iz* bele mota handia.

Hauek beleak dira; **erroitzar** beltzak, hobe. Txillardegi

---

erroiztarazi, errostaraz(i), erroiztarazten du *ad* amilarazi.

Beso horretatik dilindan gelditzen zen kondenatua, Domingok, bulkada batez, dorretik beheiti **erroiztarazten** zuenean. Aingeru Epaltza

---

erroizte *iz* amiltzea.

Batzuetan ez naiz horrenbeste harritzen euskaldunek jasandako zapalketa eta **erroizteekin**, baizik eta nola segitu dugun bizirik geure buruari burutik behera kaka egiteko horrelako ohitura izanda. Xabier Mendiguren Elizegi

Turkian 21 etxe ereman ditu lur- **erroizte** batek Ankaratik 450 kilometrotan eurite batzuen ondotik. Herria

---

erroiztegi *iz* amildegia.

bestondo latzeko goiz-beiletan ageri da ahanzturaren funtsa: esku ezezagun eta errukior batzuek arimari ematen dioten atxikigailua, hobenaren eta eromenaren **erroiztegiari** ihes egin ahal izan diezaion. Aingeru Epaltza

---

erroiztu, erroiz(tu), erroizten **1** da *ad* amildu.

Autoa bat-batean uzkaili da eta 200 metretan barna **erroiztu** behereko errekaraino. Herria

Hilde andereak goiz hartan amildegi batean behera **erroizteko** agindu izan balit, fitsik erran gabe beteko nukeen haren nahia. Alberto Ladron Arana

Ez zerurako ez lurrerako nengoen, loria bidean nintzela uste eta, tartekorik gabe, putzu beltzera **erroiztua**. Aingeru Epaltza

Nire aldetiko bultzadatxo bat baizik ez zuen behar izan galbidera **erroizteko**. Alberto Ladron Arana

Buruz goiti **erroiztu** zen Roger. Aingeru Epaltza

Muino txapal eta elkor batean, dena haitzalde eta sasi ihar, amildegi koniko ziklopekara bat **erroizten** zen hondorantz, krater artifizial bat, laurehun metro zabal: Juan Garzia

2 irud/hed

Zorabiaturik, besaulkian **erroiztu** nintzen. Aingeru Epaltza

Nire aldetiko bultzadatxo bat baizik ez zuen behar izan galbidera **erroizteko**. Alberto Ladron Arana

---

erroketa *iz* jaurtigai autopropultsatua.

Su-etena haustea nabarmendu zen Al Aksako Martirien Brigadek, Jihad Islamikoak eta Herri Erresistentziarako Taldeek euren gain hartu zituztelarik igandean Israel hegoaldeko hainbat eskualderen aurka egindako **erroketa** botatzeak. Berria - Mundua

---

errol ik **rol**.

---

errolda *(ETCn **393** agerraldi)* **1** *iz* toki bateko biztanleen zerrenda.

Joputzaren garaian, gobernuak **nekazarien** errolda egiten zuen aldika, eta lurjabeek erroldaturiko arima-kopuruaren neurrian ordaintzen zituzten zergak. Jose Morales

Erroldan inskribaturiko arimak. Jose Morales

Erroldan izena ematen ez zuen hiritarra esklabo bihurtzen zen. Iñaki Iñurrieta

Otsailaren 29ko datuen arabera, soilik 1.200.000 pertsonak zuten emanda izena **erroldan** ;. Berria - Mundua

Bostehun errublo balio du **erroldan** errejistraturiko arima bakoitzak. Jose Morales

Erroldan hogei urtez gorakoak seiehun eta hiru mila bostehun eta berrogeita hamar lagun izan ziren. Elizen arteko biblia

NBEk **errolda** egiteko ardura hartu du, udan bozak egin ahal izateko. Berria - Mundua

Hauen ondorengoak hogeitabi mila eta seiehun ziren Daviden garaian egin zen **erroldan** . Elizen arteko biblia

Zer ziren, bada, **erroldan** ez zeuden hiritar horiek, **erroldak** hiritar guztiak biltzen bazituen? Iñaki Iñurrieta

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait udalerritako agintariek «trabak» ipintzen dizkiete etorkin iritsi berriei Udalaren **erroldan** sartzeko, «nahiz eta jakin hori barik ez dutela osasun sare publikoan sartzerik izango». familiaburu izan ziren, **erroldan** banan-banan sartuak. Berria - Euskal Herria

Zenbait aitak ez zuten izena eman **erroldan** , beren jarauntsia alabari utzi ahal izateko. Iñaki Iñurrieta

Apaizak senitarteka sartu ohi zituzten **erroldan** . Elizen arteko biblia

Errolda betetzean ematen diren erantzunetan. Pello Salaburu

Herri koxkorra Harkaizpe: 986 biztanle (2001eko **erroldan**). Txillardegi

Herri indigenetako **erroldak** egitea ere eskatu zieten tokian tokiko gobernuei. Berria - Gaiak

1996ko **erroldako** datuak aintzat hartu zituzten. Berria - Gaiak

AEBetako **erroldaren** datuen arabera, 1,3 milioi gehiago bizi dira pobreziaren mugaren azpitik. Berria - Ekonomia

Erroldatik herritarren zati bat ezabatu nahi dutela. Berria - Euskal Herria

Ezkontza goiztiarrek eta **erroldarik** ez egoteak «nabarmen gaiztotzen dute» haurren eta emakumeen egoera. Berria - Gaiak

Emakumeak herriz-herri ari ziren **errolda** osatzen eta leku batetik bestera eramaten zituen autobusan leherketa bat izan zen. Berria - Mundua

Ipar Euskal Herrian, besteak beste, bakarrik bizi diren 65 urtetik goitikoen **errolda** berritzen hasi ziren. Berria - Harian

Gogorarazi zuen 1978an, Espainiako Konstituzioa bozkatu zenean, Hegoaldeko **erroldan** zeuden herritarretatik %32k bakarrik bozkatu zutela. Berria - Harian

Errolda 318 herritarrek osatzen dute, eta horietarik 273k eman zuten botoa. Berria - Euskal Herria

· Sarri samar berritzen zituzten soldadugaien **erroldak** , eta gu izen ezagunen bila ibiltzen ginen. lesbianak ginela eta Izatezko Bikoteen **Erroldan** geundela bazekiten eta, hala ere, aitaren izena eskatzen ziguten. Anjel Lertxundi

Gaur egun, nekazarien **errolda** berritu bitartean, etxalde handiak dituzten lurjabeek batera dauzkate erroldaturik arima guztiak: biziak, hilak eta ihes eginak. Jose Morales

Soldaduen **erroldaz** arduratzen zen sarjentuari pasa zion abisua. Harkaitz Cano

Erregistro zibil moduko bat osatzen dute hartara oroigarri horiek, familiako bizikizunen **errolda** antzekoa; bizidunena eta hildakoena hobeto esanda, haiek eta guk osatzen baitugu familia, haiek gure gogoan dauden bitartean behintzat. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Irakek ez du hauteskunde legerik, ez du alderdien legea arautzeko batzorderik eratu eta azken hogei urtean ez du **errolda** fidagarririk egin. Berria - Mundua

Ezkontzeko tramiteak abiatzeko Lisboako **Errolda** Zibilera joko dutela iragarri zuten atzo 28 urteko Teresa Piresek eta 35 urteko Helena Paixaok. Berria - Gaiak

Errolda berriak egiten, kaleen izenak aldatzen, zerrendak egin eta desegiten. Harkaitz Cano

Plana hobetzeko, ezinduen **errolda** zehatza egiteko eskatu dio. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez dira nire herriaren batzarrean egongo, ez da horien izenik Israel herriaren **errolda** -liburuan idatziko, ez dira Israel lurraldera inoiz itzuliko; orduan jakingo dute ni naizela Jainko Jauna. Elizen arteko biblia

Bakoitzak «nahi izan dituen» agiriak onartu ditu ezohiko **errolda** agiri horiek emateko. Berria - Harian

AEBetako azken **Errolda** Txostenak, 2003koak, agerian jartzen du berriz pobreen eta aberatsen arteko tarte gero eta handiagoa. Berria - Mundua

Ameriketako Estatu Batuen **Errolda** Bulegoko osasun ikerketen buru gisa. Berria - Gaiak

Atorraren azpian nekarren ontzikoen **errolda** -pergamua liburuen artean sartu nuen. Edorta Jimenez

Kazetariek 200 afiliatuen **errolda** zenbakiak aukeratu eta kuotak ordaintzen ari direla egiaztatu zuten finantza erakundeek. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Biztanleria zentsua, Biztanle **errolda** eta Biztanleria estatistika. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Orotara, 15,5 milioi pertsona daude hautesle **erroldan** . Berria - Harian

1,4 milioi botoemaile berrik hautes-**erroldan** izena eman dute. Berria - Mundua

Biztanleen %80k eman zuten izena, Arafat oraindik bizirik zela, hauteskunde **erroldan** . Berria - Harian

5 *hed*

Armada hauek ez dute oraindik **erroldarik** . Jon Alonso

Elkarteak trikitiari buruzko ahalik eta dokumentazio zentrorik erabilgarriena osatu nahi du, eta trikiti eskolen **errolda** hasiko du. Berria - Kultura

1935eko **erroldak** Argentinak 1.100.000 metro koadro oihan zituela zioen. Berria - Gaiak

Hegoaldeko lau probintziotan 245.000 zakur daude **erroldan** izena emanik. Gotzon Garate

New York hiriaz ari gara: egunero hamahiru mila tona zabor, **erroldan** zentsatutako hirurogeita hamar milioi arratoiren artean banatzen dituzten hiri bati buruz. Harkaitz Cano

Bistan da Errekarte Haundi askoz geroagokoa dela (aski zaharra, dena dela, Beasaingo etxeen **errolda** zaharrenean ere ageri baita, 1567an). Xabier Mendiguren Elizegi

Ozeanoetako bizidunen gaur arteko **erroldarik** zehatzena egiten ari dira. Berria - Gaiak

Donostian 8.000 bat zakur daude zakur-**erroldan** sartuak. Gotzon Garate

Bizpahiru urteren buruan, artelan guztien **errolda** egingo da, eta horri esker ezagutu ahal izango da ondarearen benetako balioa. Berria - Kultura

1935 urtetik gaur arteko baso-**erroldak** aztertu dituzte. Berria - Gaiak

Inongo aduana eta ontzi-**erroldatan** izenik eman gabeko ontzi izenik gabe bat zela. Anjel Lertxundi

Oso indigena gutxik ematen dute izena jaiotza **erroldan** . Berria - Gaiak

Luis Alberto Pradera Athleticeko lehendakaritzarako hautagaiak helegitea aurkeztu zuen atzo hauteskunde batzan, Athleticeko Kudeketa Komisioak hauteskunde **errolda** ez ziolako eman. Berria - Kirola

Nekazaritza **Erroldaren** arabera, 1999an EAEko nekazaritza ustiapenen %10en jabe baino ez ziren 40 urtez azpikoak. Berria - Ekonomia

Besteak beste, eliz **errolda** zaharretan ageri den, Urriztimoltxo horrek, basaurritza batez ere familika, beti moltxoka hazten dela, erakutsi izan dit. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken errolda (4); **azken erroldaren** (3); **azken erroldaren arabera** (3); **daude erroldan** (3); **dute izena erroldan** (3); **emaitzak errolda** (6); **errolda agiria** (8); **errolda aurkeztu** (3); **errolda bat** (3); **errolda egin** (4); **errolda egiteko** (7); **errolda egiten** (5); **errolda eta** (4); **errolda hartu** (4); **errolda osatzeko** (5); **errolda osatzen** (6); **errolda osatzen ari** (4); **erroldako datuak** (8); **erroldan agertzen** (4); **erroldan agertzen diren** (3); **erroldan egon** (4); **erroldan eta** (3); **erroldan ez** (6); **erroldan izena** (17); **erroldan izena eman** (8); **erroldan sartzeko** (4); **erroldaren arabera** (16); **erroldarik ez** (3); **eta errolda** (5); **eta erroldan** (3); **gasteizko erroldatik** (3); **hauteskunde errolda** (5); **hauteskunde erroldan** (7); **hautesle errolda** (3); **hautesle erroldan** (3); **izena erroldan** (5); **nekazarien errolda** (3); **udalaren erroldan** (3); **udalerrietako erroldetan** (4)

---

erroldaketa *iz* erroldatzea.

Garai hartan, mundu guztiko **erroldaketa** egiteko agindu zuen Augusto enperadoreak. Elizen arteko biblia

Agintari eta gainerako herritarrak bildu nituen beraien **erroldaketa** egiteko. Elizen arteko biblia

Lehen **erroldaketa** hau Siriako gobernari Kirino zela egin zen. Elizen arteko biblia

Berri on bat, ene iduriko oso garantzitsua jakin dugu, aipatu zeru iluna pixka bat bederen argitzeko: 2004-eko **erroldaketaren** arabera Frantzia uste baino dinamikagoa dugu. Herria

---

erroldatu, errolda(tu), erroldatzen **1** da/du *ad* errolda egin; erroldan sartu.

Paroxen ondorengoetatik Zakarias: honekin ehun eta berrogeita hamar gizon **erroldatu** ziren. Elizen arteko biblia

Herrian bizi baina etxea ez duten etorkinak **erroldatu** behar direla dio Lamarcak. Berria - Euskal Herria

Erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira. Elizen arteko biblia

Lebiren ondorengoak ez zituzten beste leinuetakoekin batera **erroldatu**. Elizen arteko biblia

Egin israeldar elkarte osoaren izen-bilketa senitarteka eta familiaka, gizonezko guztiak banan-banan **erroldatuz**. Elizen arteko biblia

Nafarroara behin betikoz etortzeko asmoa du, baina oraindik Katalunian dago **erroldatuta**. Berria - Kirola

Inguru horretako hegazti etxalde guztiak **erroldatuta** daudela jakinarazi zuten atzo Frantziako agintariek. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Garai berean hainbat artista eta literatok faxismoan **erroldatua** bukatu duela gomutatzen gara Joxe Azurmendi

---

erroldatze *iz* errolda egitea; erroldan sartzea.

Udaletxeen bidez egingo dute **erroldatzea**. Berria - Gaiak

EAEko Auzitegiaren epaiak kontrakoa esan arren, Udalak etorkinen **erroldatzea** trabatzen jarraituko du. Berria - Euskal Herria

Etorkinak **erroldatzearen** harira eta immigrazioaren fenomenoa jorratzeko orduan honako eskaera hauek egin zizkieten udal agintariei: [...]. Berria - Euskal Herria

---

errollo ik **erroilu**.

---

erromani **1** *iz* ijitoa.

AI Amnesty International giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeak Europan bizi diren **erromani** edo ijitoen «bizi baldintza txarrak» salatu ditu. Berria - Gaiak

Kosice hirian (Eslovakia), bestalde, 1995az geroztik **erromaniak** hiriaren erdigunetik kanpo bizi behar dute, Lunik IX etxebizitza-multzoan. Berria - Gaiak

Alemaniako **erromani** gehienek ez dute hiritartasun agiririk edo bertan epe luzean bizitzeko baimenik, nahiz eta asko urte luzez bizi izan diren herrialde horretan. Berria - Gaiak

Europa ekialdeko **erromani** gehienak «ingurune arriskutsuetan eta zaborrez inguratuta dauden txaboletan» bizi dira. Berria - Gaiak

2 (izenondo gisa)

Emakume **erromaniak** antzutu egin dituzte Eslovakian. Berria - Gaiak

---

erromaniko **1** *izond* arte estikoez mintatuz, mendebaldeko Europan X._eta XIII._mendeen garatu zena, ezaugarri gisa zirkulu erdiko arkua eta zirkulu erdiko ganga dituena.

Bere gorena XII. mentean hunkiko dü Konpostelako beilak, eta ordüan garatüko da Xiberoan arte **erromanikoa**. Herria

Egiarteko eliza **erromaniko** ederra. Txillardegi

Haien parean, beste zirkulu estuago bat osatuz, harrizko zutabe motz astunek erdi-puntuko arkuei eusten zieten, aretoari monasterio **erromaniko** baten itxura emanez. Alberto Ladron Arana

José Tudela musikariaren garaian eliza polit txukuna zuen, monasterioa bezala, eraikin **erromanikoa** baitzen. Felipe Juaristi

Muniaingo elizako ataripe **erromanikoa**. Edurne Elizondo

Xarma handiko gauza asko eta desberdinak ditu ikusteko (freskoak, korua, klaustro **erromanikoko** kapitelak...). Anjel Lertxundi

Katedralaren dorre lirainek, lehengo aurrekalde **erromanikoa** ahantzarazten bezala dutelarik, plazaren hedadura zabala, kontrastearen medioz, urrunago barreiatzen dute. Piarres Aintziart

Zubi **erromanikoa**, bere sei arkuekin, ederretsi gabe ezin da pasatu. Piarres Aintziart

Horra hor zer egin duten Felipe IIøaren ziudadela eraikitzen eta Loiolako Inazio arkabuz frantses batek zauritzen ikusi duen Iruñeko katedral kasik **erromanikoarekin**. Koldo Izagirre

Sakristia ez zen **erromanikoa**, askoz geroago eraikitako eranskina baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

Arkitekturaren arloan estilo **erromanikoa** -bere azkenaldiko etiketak adierazten duenez, aurreko Zibilizazio Heleniko baten azken garaitik heredaturiko gaiaren bariazio bat zena- jada erabat menderatua zuen kanpotik sartutako "gotikoak". Iñaki Mendiguren

2 (izen gisa)

Erromanikotik Gotikorako aldiak (XII. eta XIII. mendeak) kultur etena ekarri zuen. Askoren artean

Artozkik **erromaniko** berantiarreko eliza zuen, kanoi-gangarekin. Edurne Elizondo

3 (hitz elkartuetan)

Erromaniko kutsua izanen dute beraz hastapenean, literaturak eta musikak ausnar-arazten dizkioten bolumen zizelatuek. Herria

· Santamaria a Real aurre- **erromaniko** estiloko eliza sinplea, dena arku, harri ederrez finkatuak horma urdinak, aldare sinple bat. Piarres Aintziart

4 hizkuntzez mintzatuz, latinetik eratorria dena; hizkuntza horiei dagokiena.

Paleolitotik datorren jatorrizko mintzaira zaharra hizkuntza indoeuropar eta **erromanikoen** eraso etengabe eta suntsitzaileetatik defendatzera egokitzen den oro. Iban Zaldua

Hizkuntzalaritza, zeinak konparazioari dagokion lekua eman baitzion, zentzu hertsian, hizkuntza **erromanikoen** eta hizkuntza germanikoen estudioetatik sortu zen. Isabel Arrigain

Filologia **erromanikoan** lizentzia lortu, eta Italiara itzuli zen berriro. Josu Zabaleta

Diez-ek hasiriko estudio **erromanikoek** berezikiro lagundu zuten [...] linguistika bere benetako helburura hurbiltzen. Isabel Arrigain

5 *hed*

Ildo honetatik, aipagarri da Suiza **erromanikoko** hizkerei buruzko galdeketa. Isabel Arrigain

Lieja **erromanikoa** izango da Waloniako lurraldean dagoelako; toki horretan, frantsesa da atzerritar hizkuntza bat, enbor bereko dialekto baten gainean ezarria dagoena. Isabel Arrigain

Oro har nahiago izan zituzten ortografian arrunt diren ikurrak (*b, m,* etab.), alfabeto **erromanikoarekin** uler daitezkeenak. Lourdes Oñederra

6 (izen gisa)

Hogeigarren mendean Mendebaldeko Europako hiriak artean katedral "gotikoek" menderatuta zeuden, beren aurreko **erromanikoak** ordeztu zituztelarik. Iñaki Mendiguren

Badaezpada ere, Retortillo aldera jo dut, **erromanikoa** ikustera. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arte erromanikoa (5); **eliza erromaniko** (4); **eliza erromanikoaren** (3); **hizkuntza erromanikoen** (5); **katedral erromanikoa** (3)

---

erromanista *iz* hizkuntza erromanikoetan aditua den pertsona.

Baina hala gertatzea ezinezkoa da, inoiz ez da baldintza hori betetzen: **erromanistak**, esaterako, latina -haien estudioaren abiapuntua dena- ezagutzeko eta esku artean mende askotako dokumentu kopuru gaitza izateko abantaila dutenak, etengabe ari dira aurkitzen hutsune nabariak eskuratu duten dokumentazioan. Isabel Arrigain

Erromanistak, indoeuropeistak ez bezala, ezin hobetuzko egoeran zeuden lan horri ekiteko, zeren, alde batetik, latina -hizkuntza erromanikoen prototipoa- ezaguna baitzen, eta horren ondoan, bestetik, dokumentuen joritasunak hizkuntzen bilakabidea xehetasun handiz jarraitzeko aukera ematen baitzuen. Isabel Arrigain

---

erromanizazio *iz* erromatar kulturako eta hizkuntzakoa bihurtzea.

Kabalekin etzaten ginela dioen Aymeric Picaud-en kroniketarik Sanchez Albornoz-en teoria historizistetara, **erromanizazioa**, hispanitatea eta kultura ulertzeko hari bera. Iñigo Aranbarri

Erromanizazioari Euskal Herriak Gaskoinak baino hobeki buru egin ziola. Berria - Euskal Herria

Corominesentzat halaber litzateke euskara pirinioar gailurrak zeharkatzen zituzten herrien hizkuntza zaharra eta, aldi berean, **erromanizazioa** baino lehenago, indoeuroparrak ez ziren beste hizkuntza batzuen hiztunak, iberera mintzatzen zutenak adibidez, ibarretan finkatuak zeuden jada. Berria - Kultura

Erromanizazioaren Museoa eraikitzeko. Berria - Kultura

---

erromano **1** *iz* erromatarra.

Beste lau "castro" badaude inguru hauetan, **Erromanoak** hemen zirela seinale. Piarres Aintziart

Napoli, hiriburua, hiri aberatsa, bizi luzea daukana hasirik **Erromanoekin**, segituz frantsesekin eta espainiolekin. Herria

Tardajos herria arras pollita da eta izen ospetsua zeukan **Erromanoen** garaian: "Augustobriga". Piarres Aintziart

'Erromanoen moduan!' agindu zidan berak. Joseba Sarrionandia

Erromanoen denborakoa. Janbattitt Dirassar

Erromanoen egutegian, martxoarekin hasten zen urtea. Herria

Hiri horiek erakustera emaiten baitute zer izan den **Erromanoen** eragina Galia osoan. Herria

Mendeetan zehar, **erromanoek** edo Jondoni Jakobeko beilariek zeiharkatu dituzte Ipar Euskal-Herri barne-aldeko bideak. Herria

Merkurio jainkoa, ibiltarien patroia, zuten **Erromanoek** ohoratzen, harriak botatuz. Piarres Aintziart

Eskuin, mendixka horren puntan, Lancia, Asturoen azken geriza-lekua, **Erromanoek** menperatu aitzin. Piarres Aintziart

Hortik uler daiteke, nola zeltarrek, **erromanoen** zibilizazioarekin topo egin zutenean, algarari eta trufari ematen zioten. Pello Zabala

Martxo izen hau Marte gerraren jainko borrokalari horren omenetako hilarena zen, **erromanoen** artean. Pello Zabala

Erromanoen mintzaira arrunt gustukoa nuen. Piarres Aintziart

Zizeron handiak abiatu ildotik doa Piarres Charritton, gaurkotuz eta hemengotuz nolazpait **erromano** famatu horren mezua. Herria

2 (izendondo gisa)

Emeterio eta Zeledonio, III. mende akaberan edo IV.aren hasieran izan ziren martirizatuak, Kalagurrin, soldadu **erromanoen** eskuz. Pello Zabala

Agur **erromanoa** eginez. Zubi **erromano** hori Molinasecan sartzeko egina da. Piarres Aintziart

3 *(izendondo gisa, izenaren ezkerrean) ipar*

Hori bera izan zela Baionatik Donibane Garazirako **erromano** bidearen geldiguneetarik bat. Herria

Aita Sainduakukan du igandean, bere **Erromano** beilarien plaza haundiko leihoan, bakearen Charlemagne saria, eguerdiko anjelusaren tenorean. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erromanoen artean (3); **erromanoen denborako** (6); **erromanoen denborakoa** (3)

---

erromantiko **1** *izond* erromantizismoari dagokiona; erromantizismoaren ideiak bereganatu dituena. ik **klasiko**.

Gizartearen, indibiduoaren, moralaren bi ikuskera dago, **erromantikoa** eta ilustratua. Joxe Azurmendi

Egungo Ilustratuek dioskutenez, Herder, Humboldt, Victor Hugok..., "mende **erromantikoak"** atondu omen zuen Euskal Herriaren irudia. Koldo Izagirre

Nahitaezkoa zaigu eredu **erromantikoari** uko egitea anakronismoan edo bazterketan ez erortzearren, hots, lehen mailako balio kulturalak geureganatzeko. Bernardo Atxaga

Zaila da [...] mugimendu **erromantikoaren** xehetasunak hitz gutxitan erabakitzea, areago mugimendu horrek denbora eta espazioan norainoko zabalera hartu zuen ikusirik; eta ikusirik, gainera, ideia **erromantikoek** diziplina ugari ukitu zituztela, geografia eta filosofia, kasu, eta ez bakarrik hasierako arlo estetikoak, artea edo literatura. Bernardo Atxaga

Erromantizismoa Espainian, aurretik arima espainolaren teoria **erromantikoak** erromantizismoa bera iragazita sartu da. Joxe Azurmendi

William Wordsworth (1770-1850), poeta **erromantikoa**. Xabier Olarra

Higikunde **erromantikoko** bigarren mailako epigonotzat hartu dute adituek Poe. Koro Navarro

Egungo Andaluzia folkloriko famatua, errealitate historikoa baino gehiago, Washington Irving eta, bidaiari eta literato **erromantikoen** asmazio bat izan dela. Koldo Izagirre

Kritikari askok **erromantikotzat** jotzen dute, eta biziki miresten dute amets eta ikuskari fantastikoen sortzaile gisa, fantasiaz eta misterioz oparo hornituriko istorioen narratzaile mistiko gisa. Jose Morales

2 (izen gisa) erromantizismoaren ideiak bereganatu dituen pertsona.

Erromantikoek zabaldutako *Volkgeist* edo herriaren espiritu hartatik abiatuta. Bernardo Atxaga

Aingeru eroriari, **erromantikoek** disidentziaren eredutzat zeukaten artearen deabru goardakoari. Anjel Lertxundi

Herriaren izpiritu baten aitortzak ez Voltaire, Montesquieu, eta printzipioz inor ez duela bihurtzen **erromantiko** eta ez idealista. Joxe Azurmendi

Kontua da **erromantikoek** irauli egin zutela, mila urte eta gero, Literaturaren Etxea, eta ezerk ez zuela, haien ondorenean, lehengo lekuan jarraitu. Bernardo Atxaga

Erromantikoak izan ziren herri tradizioa irakurtzen irakatsi zigutenak. Bernardo Atxaga

3 pertsonez mintzatuz, sentipenak erraz hunkitzen duena; gauzez mintzatuz, bihotza erraz hunkitzeko, zirrarak eta ametsak erraz eragiteko helburua duena; erromantizismoari dagokiona.

Emakume maitagarria zen, **erromantikoa** eta aho goxo bezain jostalaria zuena. Julen Gabiria

Cecily ez duk neska **erromantiko** zuntzun horietako bat. Antton Olano

Beti izan naiz grinatsua, **erromantikoa**, erabateko maitasunak bat-batean hartzen dituen horietakoa. Jon Muñoz

Zu ere **erromantikoa** eta ameslaria zara. Jon Muñoz

Abertzale **erromantikoa**, pleonasmo bat erabiltzeko? Piarres Aintziart

Antiheroi tragiko **erromantikoa** zen Jean Gabin. Berria - Kultura

Behar bezain **erromantikoa** banintz, aspaldi neure buruaz beste egingo nukeen, jendeak nitaz hitz egin zezan besterik ez bada ere. Lopez de Arana

Osaba Xabierrek disgustu handia hartu zuen, ingenuoa zen, eskuzabala, **erromantikoa**, idealista, jendeaz errazegi fidatzen zena. Mikel Hernandez Abaitua

Anarkista **erromantiko** bat bertso humanitario barregarriak idaztera bultzatzen duen ideia berberak bultzatzen du dinamitatzaile bat bonba jartzera. Josu Zabaleta

Bagenekinan lotzen gintuena ez zela maitasun **erromantiko** edo horietakoa, gurea bizitzaren gorabeherei lotuta zegoela. Migel Angel Mintegi

Nerabe baten amets **erromantikoa** zen hura, neure egiazko izaerarekin zerikusi handirik ez zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaur egun barregarri eta guzti gerta litezke eskutitzetako beroaldi **erromantiko** horiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Amonak esaten dik Castro, Che Guevara eta iraultzaren kontu horiek 1958 ingurukoak direla, eta orduan, bai, orduan dena oso polita, oso **erromantikoa** eta oso sinbolikoa izan zela. Jon Muñoz

Bere baitan zeuden biak, **erromantikoa** eta ikaskide arrunta, ametsik ederrenak ernetzen zituena eta edozein bebarrutan eskua sartuko ziona. Pako Aristi

Orduan esan zidak **erromantiko** bat naizela, gazte guztiak bezala. Jon Muñoz

Guztietan zerabilen tonu berbera, Jazmin saileko nobela **erromantikoena** gogorarazten zidana, nolabait. Iban Zaldua

Leku **erromantikoa** zer izan zitekeen jakin ez, nonbait, eta lehenengo musua komun batean eman ziona. Fernando Morillo

Argiak erdi-itzalita utzi zituen giro guztiz **erromantikoa** lortzeko. Joxemari Iturralde

«Non eman zenuen lehen musu **erromantikoa**?», galdetu du Luistxo Fernandezek, Eibarko CodeSyntax software enpresako buruak. Berria - Gaiak

Emakume horren historia **erromantikoak** eta maitasun fatalak makina bat malko isurarazi zuten Britania Handian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hannak oso ongi ulertzen zuen nire proposamena, benetan zen bezalakoa: ez **erromantikoa**, ezta moralista ere, baizik eta praktikoa: bizitoki bera, ekonomia bera, adin bera. Joxe Austin Arrieta

Egia esan, nik ez zioat deus **erromantikorik** ikusten ezkontzeko eskea egiteari. Antton Olano

Hogei bat urte nituen, eta **erromantiko** samarra nintzen ni, artean. Joan Mari Irigoien

-Juan Antonio Perezena; badakizu, eleberri **erromantikoak** egiten dituen idazle famatua. Jon Arretxe

Donostiako Antzoki Zaharrean ikusi ahal izango da komedia **erromantiko** hau. Berria - Kultura

Emozioak jota zegoen, abentura **erromantiko** baten erdian. Fernando Morillo

«Ikuspegi kultural erabat esentzialista, erabat **erromantikoa**» zen Oteizarena. Berria - Harian

Historiografia ofizialak 1974ko apirilaren 25eko Krabelinen Iraultza-ri kutsu **erromantiko** hutsa eman arren, aldaketa handiak eragin zituen Portugalen, baita menpeko kolonietan ere. Berria - Mundua

Hiltzea gauza **erromantikoa** zuan, batez ere herriaren izenean egiten bazen. Mikel Hernandez Abaitua

Brahms-en 1.go sinfonian zuzendariak bertsio klasiko-**erromantikoa** eskaini zigun. Berria - Kultura

· Hamabi kontzertu eskainiko ditu Organo **Erromantikoaren** Jaialdiak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batere erromantikoa (3); **bezain erromantikoa** (4); **erromantiko bat** (18); **erromantiko baten** (4); **erromantiko edo** (4); **erromantiko eta** (10); **erromantiko hark** (3); **erromantiko hori** (4); **erromantiko hura** (4); **erromantikoa da** (9); **erromantikoa dela** (3); **erromantikoa eta** (11); **erromantikoa izan** (5); **erromantikoa zen** (7); **erromantikoak izan** (3); **erromantikoko zikloaren** (3); **eta erromantiko** (4); **eta erromantikoak** (4); **eta erromantikoen** (4); **maitasun erromantikoaren** (3); **musika erromantikoa** (3); **neska erromantiko** (3); **organo erromantikoaren** (6); **organo erromantikoko** (3); **organo erromantikoko zikloaren** (3); **oso erromantikoa** (5); **poeta erromantiko** (3)

---

erromantikoki *adlag* era erromantikoan.

Erromantikoki, amodiozko harreman batean bikotea osatzen zuten kideek bakartasuna baino gehiago jartzen zutela sinesten zuen. Baina kaos horixe, organikoa eta naturala, irudikatu behar nuen nik; eta kaos bat irudikatzeak ez du esan nahi era kaotikoan, **erromantikoki** alegia, irudikatzea. Itxaro Borda

Ilustrazioak tolerantziari nolabait lagundu bazion, gure argiturriek Ilustazioa **erromantikoki** errebindikatzen dute, boterearen hedabideetan ahulari errieta egiteko dute baliatzen. kaos horixe, organikoa eta naturala, irudikatu behar nuen nik; eta kaos bat irudikatzeak ez du esan nahi era kaotikoan, **erromantikoki** alegia, irudikatzea. Markos Zapiain

---

erromantikozale *izond* gauza erromantikoen zale dena.

Batzuk eta besteak bat etorri dira esatean modu serioan tratatu dela maitasuna eta maitemintzea, eta ez dela egin melodrama sentimentaloide eta **erromantikozalea**. Ana Urkiza

---

erromantizatu, erromantiza, erromantizatzen da/du *ad* erromantiko bihurtu.

Orain **erromantizatua** XIX. mendean tuberkulosiarekin kasu, orain demonizatua minbizia eta are gehiago egun hiesarekin gertatzen den legez, Susan Sontagek humanismo ariketa horren bidez ikustarazi zigun zenbateraino den ahaltsua norbanakoon borondatea, zigorrarekin estu lotua edo zigorraren mozorroz arinki hedatzen den pentsamenduari aurre egiteko. Berria - Kultura

---

erromantizismo *iz* XVIII. mendearen bukaeran eta XIX.aren hasieran gertatu zen literatura eta arte mugimendua, klasizismoaren arau hertsiak arbuiatzen zituena eta artistaren askatasuna aldarrikatzen zuena.

Erromantizismoa ere, ordea, ez ote da Parisetik datorren moda? Joxe Azurmendi

Gerra napoleondarren ondoko Errestaurazioan gaude eta **erromantizismoaren** hastapenetan. Joxe Azurmendi

Zilegi izan bekigu ohartxo batean gomutatzea nola gizartearen ikuskeran, eta gero nazionalismoan, A.D. Smithek ere bi korronte handi bereizten dituen: baina horiek ez dira frantsesa versus alemana edo Ilustrazioa versus **Erromantizismoa**, baizik tradizio franko-alemana versus anglo-amerikanoa. Joxe Azurmendi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Klasizismoa frantsestia izan ondoren, **Erromantizismo** espainola -bitartean gerra napoleondarren esperientzia dago-, eta XIX. mende guztia ere, nazionalista izango da. Joxe Azurmendi

Lehen **erromantizismo** frantseseko literato gailena. Joxe Azurmendi

Ikasle zahar hura **erromantizismo** bizi-bizi batek jota zegoen, Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Erromantizismo-espiritua gordetzen zuen hiri bakanetako bat zen oraindik Madril. Josu Zabaleta

4 irud/hed

Gustatuko zitzaiokeen, erlijiosoa ez izan arren, **erromantizismoz**, Karitateko lekaimeak aingerutarrak zirela sinestea; baina, egia esateko, administrazio-gaiez eta gaixo bat larri jartzen zenean konfesoreari deitzeaz baizik ziren arduratzen ospitalean, Hurtadok ikusten zuenez. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erromantizismo eta (3); **erromantizismoa ere** (3); **erromantizismoa eta** (3); **eta erromantizismoaren** (4)

---

erromantxera *iz* erretorromanieraren aldaera, Suitzan mintzatzen dena.

40.000 hiztun inguru duen **erromantxeraz** poesia idazten duen artzaina, benetakoa. Edorta Jimenez

Sakabanaketa horren ondorioz, hain zuzen ere, **erromantxerak** hainbat dialekto eman ditu. Berria - Harian

Erromantxerak gaztelaniarekin izan duen harremanetik calo hizkuntza sortu da. Berria - Harian

Azken horrek calo hizkuntzak baino askoz hobe gorde ditu **erromantxeraren** erroak eta gramatika. Berria - Harian

---

erromantza *(orobat **erromantze** g.er.) iz* aria xumea, eskuarki zenbait ahapalditan banatua.

Opera konpainiekin joana zen Ameriketara, eta jakin bazekien zenbait **erromantza** eta aria kantatzen, eta gure aitak entzuten zizkionean poz-pozik jartzen zen. Pello Lizarralde

Ausardiaz eta kemenaz eraso zion abesteko beldurgarria den *Je crois entendre encore* maitasun **erromantzari**. Berria - Kultura

Lehen zatian bezala dantzari bikainen dohain guztiak erakusten du oraingo bikoteak ere Erromantizismoaren garaiko **erromantza** batek lagunduta. Berria - Kultura

Hala *O mio castelo* arian edota *Di latroni attorniato* **erromantzean**. Berria - Kultura

---

erromantzatu, erromantza(tu), erromantzatzen du *ad* erromantzeko hiztun bihurtu.

Guzti honetatik ondoriozta liteke euskaldunen hizkuntzaren galera sozio-linguistikoaren prozesuan, sarbide zaileko eta berandu **erromantzaturiko** eskualde batzuk aurrez latina erabili gabe zuzenean igaro zirela euskara baliatzetik katalana baliatzera. Berria - Kultura

---

erromantze[1] **1** *iz* hizkuntza erromanikoa.

Nafarroako **erromantzean** egin zion: [...]. Aingeru Epaltza

Badakik euskaraz eta badakik **erromantzez**, eta ingelesez ere trebatzen ari haiz. Edorta Jimenez

Bazen han *Itinerario de Navegación* izeneko liburua, **erromantzez** izkiriatua. Edorta Jimenez

Halaxe ekin nion Gaztelako **erromantzez** izkiriatua zen hura beste pergamu batera zehatz aldatzeari. Edorta Jimenez

-Gai ote da **erromantzez** ganoraz egiteko, ala liburuak irakurtzen dituen lengoaia deabru horretan izkiriatu behar du? Edorta Jimenez

Eta gero boz zakar bat, **erromantzez** biraoka. Edorta Jimenez

Han aipatzen dira Artur erregeren egite handiak, gure Gaztela- **erromantzean**, hutsik egin gabe, Artus izena ematen zaiona. Patxi Ezkiaga

XII-XIII. mendeetan latina baztertu zenean, nafar **erromantzea** lehenengo, eta gaztelania gero izan ziren haren ordezkoak. Koldo Zuazo

Nola nagusitu ziren **erromantze** mintzairak? Herria

2 (izenondo gisa) hizkuntzez mintzatuz, erromanikoa.

Latinera ohituta egonda, samurragoa zen latinetik hizkuntza **erromantzeetarako** jauzia, latinetik euskararakoa baino. Koldo Zuazo

Arabiar poesiaren espiritua eta teknika hizkuntza **erromantze** batean Proventzako trobadoreen bidez iritsi baitzitzaien. Iñaki Mendiguren

3 poesia lana, eskuarki zortzi silabatako neurtitzetan ondua.

Are, Durán-en ustean zenbait **erromantze** zahar (Calderón ez bezala) zinez barbaroa da, baina -hori ulertarazi nahi zaigu- interes historiko soziala badu, literariorik ez ukan arren. Joxe Azurmendi

Gure asmoen onerako nahiz txarrerako berdin noski Kalainosen **erromantzea** kantatuko balu ere. Patxi Ezkiaga

Erromantze batean diotenez, sagar gorria, intxaur gorrixkoa eta basa-lizarraren baia gorria omen zen jainkoen elikagaia, bizitza eternizatzen zuena. Pello Zabala

Euskal baladetan eta orohar **erromantze** zaharretan maiz ageri da zubia, bi maitaleen arteko menturaren froga moduan. Patziku Perurena

"Andre Emili, andre gora" euskal **erromantzea** ekartzen digu gogora: [...]. Gotzon Garate

Hala O mio castelo arian edota Di latroni attorniato **erromantzean**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erromantzez izkiriatua (3); **eta erromantzez** (3)

---

erromantze[2] ik **erromantza**.

---

erromantzegile *iz* erromantzeak ontzen dituen pertsona.

Bufoiari hizkera arruntean txoroa esan ohi zitzaion, baina poeta eta **erromantzegileek** beti atsegin izan dute bufoia pertsona zuhur eta argi gisa azaltzea. Xabier Olarra

---

erromantzero *iz* erromantzeen bilduma.

Arima hori, zientzian, historian, Urre Mendeko teatroan, **erromantzero** eta atsotiztegietan bila eta bilatzen zena, idazleek (poetek, etab., baina batez ere saio-berrigileek,

literatura espainolean saio modernoa abiatuz) beraiek kreatu dute literarioki, horien artean Ganivet -Unamuno-rekin batera- gailentzen dela. Joxe Azurmendi

Estreina Durán-ek, kritiko gisa, eta bere interesa **erromantzeroan** justifikatzeko batik bat, literaturaren historikotasun eta baldintzatze sozialaren doktrina ezarri behar du (prezeptiba klasizistaren aurka). Joxe Azurmendi

Erromantzero espainola partikularki aberatsa da eta kalitate bikainekoa. Joxe Azurmendi

Montesinos: espainiar **erromantzeroko** heroia, Karlomagnoren elezaharrean azaltzen den arren. Patxi Ezkiaga

Durán-ek **erromantzero** zaharra, primitiboa ez du maite; eta ez du maite, alemanek horixe aurrenik maitatzea. Joxe Azurmendi

---

erromantzetegi *iz* erromantzeroa.

Jorge Manriqueren koplak, **Erromantzetegia**, Don Quixote, Bizitza ametsa da, Karmel Mendirako Igoera moduko lanek munduaren intuizioa eta bizitzaren kontzeptua, Weltanschauung und Lebensansicht, dauzkate estarian (--...). Joxe Azurmendi

---

erromar ik **erromatar**.

Erromaratu, erromara(tu), erromaratzen da/du *ad* Erromara joan.

Erromaratu aintzin, zenbait egun iraganik Italia Hegoaldean, Barihirian, hango gazteriarekin harremanetan izanki-eta 1997-an Parisen izan zen girixtino gazteen besta handia iraganez geroz. Herria

Anartean **Erromaratuko** dira aste huntako ehortz egunetara bi miliun jende diotenaz, ainitz kargudun eta buruzagi heietan, denak ere otoitzean eta geroa gogoan. Herria

Joanes Paulo II Aita Saindu zenaren ehortzetako kondu batzu baditugu orain: mila treina **Erromaratu** ziren, sei mila kasetarik izan zuten baimena. Herria

---

erromatar *(ETCn **1.301** agerraldi; orobat **erromar** g.er.)* **1** *izlag* Erromakoa, Erromari dagokiona.

Bagdadeko Abbastar Kalifaldia piztu egin zen Kairoko Abbastar Kalifaldiaren forman, eta **Erromatar** Inperioa Mendebaldeko **Erromatar** Inperio Santuaren eta Kristandade Ortodoxoan Ekialdeko **Erromatar** Inperioaren forman. Iñaki Mendiguren

Erromatar probintzia bihurtu zen Egipto. Jon Muñoz

Erromatar politika, menderatu ez zituzten herri guztietatik bereiztea izan zen. Iñaki Iñurrieta

Erromatar munduan, astindua Palestinatik Galiaraino sentitu zen; arabiar munduan Ferganatik Andaluziaraino. Iñaki Mendiguren

Erromatar bakeak eskainitako aukera, lehian zeuden zenbait erlijio proletariok hartu zuten. Iñaki Mendiguren

Nahiz eta Errepublikako **erromatar** armada oso kaltegarri eta higuingarria izan **erromatar** konkisten garai ankerrean, are ankerragoa izan zelarik **erromatar** gerra zibilen garaian, Inperioko armada [...] Erromaren mendekoen nahigabeko begirune, mirespen eta estimua ere bereganatzera iritsi zen. Iñaki Mendiguren

Martzelo ez al zen, ordea, **erromatar** jeneraletan handiena? Jon Muñoz

Erromatar ehuntariaren sinesmena.

Paulo eta **erromatar** gudalburua. Elizen arteko biblia

Nik problemak izan ditut han, eta partitu nintzelarik letra bera utzi nuen, orain **erromar** kardinal den Lagi deitu bati, orduan zen hura hango nuntzioa. Menane Oxandabaratz

Erromatar zenbakera idatziak ez zuen batere balio kalkulurako, eragiketarik soilena abakoaren laguntzaz egin behar baitzen. Jon Muñoz

Ikasi nahi zuen guztiari erakusten zion erabateko nagusitasuna zutela, **erromatar** zifren gainetik, indo-arabiarrek. Jon Muñoz

2 (izenondo gisa)

Volksgeist espainola -aro **erromatarrean** moldatua jada, bere esanean, baina batasun nazionalaren kontzientzia eta indarra kristautasunak eman diona-. Umezurtzei kendu eta beste gizon bati bere lagun hurkoaren ondasunak ematean datzan epaibide hau ezezaguna zen errepublika **erromatarreko** garai guztietan. Joxe Azurmendi

Garaitzak soilik erabaki zuen fede punikoa ala fede **erromatarra** esan behar ote zen. Iñaki Iñurrieta

Estatu modernoen eratzailea, historikoki, ez da izan zuzenbide **erromatarra**, bai jaun germaniar basaren ukabila. Joxe Azurmendi

Lege grekoek eta **erromatarrek** zigortu egiten zituzten bai lapurreta estaltzen zuena eta bai lapurra bera. Iñaki Iñurrieta

Itsasontzi greko edo **erromatar** batek. Iñaki Iñurrieta

Erdi aroaren hasierako denboretan, adibidez, etnismo **erromarra** izan zen (erkidego linguistiko bat, alegia), haien artean inolako lokarri politikorik ez zuten herriak lotzen eta batzen zituena. Isabel Arrigain

Legegile **erromatarrek** bazekizkiten egia hauek; haiek ez zuten inolako torturarik erabiltzen, esklaboekin ez bazen. Juan Martin Elexpuru

K. a. I. mendeko ingeniari militar **erromatarra** zen Marco Vitruvio. Santiago Iruretagoiena

Aberria bigarren ama da, Ulisek hilezkortasuna bera baino ere aurrerago ipintzen zuena, hizlari **erromarrak** dioenez. Berria - Kultura

Hark txosten baten bigarren partea aipatu dik, baita hik egunkarian "I." **erromar** batez markatutako informazio bat ere. Aingeru Epaltza

• **3** *iz* Erromako biztanlea.

Auzibide jatorra eta zintzoa zen, **erromatarren** bihozberatasunaren adierazgarria. Juan Martin Elexpuru

Luziok, **erromatarren** kontsulak, Ptolomeo erregeari, agur! Elizen arteko biblia

Tiriarrak, kartagotarrak eta **erromatarrak**. Iñaki Iñurrieta

Hala eta guztiz, **erromatar** batek ere ez du bere burua errege izendatzen, ez eta purpuraz janzten ere aginpidea handitzeko. Elizen arteko biblia

Matematikari bakarra izan zuten **erromatarrek**, Boezio. Jon Muñoz

Erromatarrek Korinto suntsitu zutenean, merkatariak Delosera erretiratu ziren. Iñaki Iñurrieta

Frankoek ez zutela Galia konkistatu, baizik eta **erromatarrek** deitu zietela frankoei. Iñaki Iñurrieta

Betis ibaiaren iturburuan zeuden zilar-meategietan berrogei mila gizonek egiten zuten lan, eta hogeita bost mila drakma ematen zizkieten **erromatarrei** eguneko. Iñaki Iñurrieta

Erromatarrek inoiz ez dute azaldu atxikimendu berezirik merkataritzarekiko. Iñaki Iñurrieta

Greziarrek eta **erromatarrek** Indiekin zuten merkataritza ez zegoen gurea bezain hedatua. Iñaki Iñurrieta

Irrikaz nago zuei ere, **erromatarroi**, berriona hots egiteko. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da erromatar (5); **edo erromatar** (5); **ekialdeko erromatar** (23); **ekialdeko erromatar inperioaren** (8); **eliza erromatar** (3); **erromatar armada** (5); **erromatar armadak** (3); **erromatar armadaren** (3); **erromatar bat** (6); **erromatar bat hiltzeagatik** (3); **erromatar batek** (7); **erromatar baten** (11); **erromatar ehuntariak** (3); **erromatar eliza** (3); **erromatar enperadore** (9); **erromatar enperadorearen** (5); **erromatar enperadoreek** (3); **erromatar eta** (9); **erromatar garaiko** (5); **erromatar garaikoa** (3); **erromatar gobernu** (4); **erromatar gobernu inperialaren** (3); **erromatar gobernuak** (4); **erromatar gorputz** (3); **erromatar inperio** (14); **erromatar inperioa** (13); **erromatar inperioak** (12); **erromatar inperioan** (13); **erromatar inperioaren** (60); **erromatar inperioaren eta** (6); **erromatar inperioaren historian** (3); **erromatar inperioko** (7); **erromatar inperiotik** (3); **erromatar katoliko** (3); **erromatar kolonia** (5); **erromatar legea** (5); **erromatar legeak** (9); **erromatar legearen** (8); **erromatar munduan** (4); **erromatar probintzia** (3); **erromatar zuzenbidea** (24); **erromatar zuzenbideak** (5); **erromatar zuzenbidearen** (10); **erromatar zuzenbideko** (3); **eta erromatar** (41); **eta erromatar inperioko** (3); **ez erromatar** (3); **greziar eta erromatar** (3); **izan zen erromatar** (4); **kristautasun erromatar** (4); **mazedoniar eta erromatar** (3); **mendebaldeko erromatar** (7); **mendebaldeko erromatar inperioaren** (3); **zen erromatar** (15); **zen erromatar inperioaren** (5); **zuen erromatar** (10); **zuten erromatar** (3)

antzinako erromatarra (3); **baina erromatarrak** (3); **baina erromatarrak** (3); **baina erromatarren** (4); **enperadore erromatarren** (3); **erromatarra ez** (5); **erromatarra ez zen** (3); **erromatarrak baino** (4); **erromatarrak baino** (4); **erromatarrak eta** (6); **erromatarrak eta** (6); **erromatarrak ez** (4); **erromatarrak ez** (4); **erromatarrak izan** (3);

erromatarrak izan (3); **erromatarrek ere** (6); **erromatarrek eta** (6); **erromatarrek ez** (9); **erromatarrek ez zuten** (4); **erromatarren artean** (35); **erromatarren arteko** (4); **erromatarren denborako** (3); **erromatarren eta** (7); **erromatarren garaia** (4); **erromatarren garaian** (9); **erromatarren garaiko** (11); **erromatarren garaitik** (3); **erromatarren gerra** (3); **erromatarren handitasunaren** (4); **erromatarren lege** (4); **erromatarren mende** (3); **erromatarren zentsua** (3); **erromatarren zirku** (3); **eta erromatarrak** (10); **eta erromatarrak** (10); **eta erromatarrek** (20); **eta erromatarren** (31); **eta erromatarren artean** (7); **frankoak erromatarren** (4); **greko erromatarreko** (3); **grekoek eta erromatarrek** (5); **greziarren eta erromatarren** (3); **inperio erromatarra** (3); **lege erromatarrak** (7); **lege erromatarrak** (7); **lege erromatarrek** (6); **lege erromatarren** (3); **lehen erromatarrek** (3); **lehen erromatarren** (3); **lehen erromatarren artean** (3); **zioten erromatarrek** (3); **zuten erromatarrek** (7); **zuzenbide erromatarra** (6); **zuzenbide erromatarreko** (5)

---

erromatarkeria *iz* erromatarren ekintza gaitzesgarria.

Tipustapan, **erromatarkeriatan** murbilduta zure esanari entzungor egiten diola uste duzun ikasle saiatuak, berbarako, ohartxo hau luzatzen dizu: [...]. Koldo Izagirre

---

erromatartu *izond* erromatar bihurtua.

Akitanieraren adibideak argi uzten du, euskarak orain baino eremu zabalagoa zuela, eta euskararen etsai agertzen diren (edo ziren), baiones edo angeluar garaikide gaskoi batzuk, **erromatartuak** izan ziren Akitaniako euskaldunen ondokoak direla. Herria

---

erromazale *iz* erreforma protestanteen garaian, Erromako Aita Santuaren alde egin zuena.

Arrosek eta haren kapitainek pentsatu bezala, euskal lurraldeetan seguru sentitzen ziren **erromazaleak**. Aingeru Epaltza

Deialdia erreginaren onarpenik gabe egina zen, Lüküzek eta bertze noble **erromazaleek** eta elizgizonek bulkatuta. Aingeru Epaltza

Mendiz-hainditarra zen, bihotzez **Erromazalea**, gaizki heltzen zena Felipe II.ak Espainian sustatzen zituen joera erregezale eta estatuzaleekin. Piarres Xarriton

Nafarroako erregina ezker nahiz eskuin auzo izateak uzkurtuko zituen noski **erromazaleetan** suharrenak. Aingeru Epaltza

---

erromazalekeria *iz* erromazalearen jarrera gaitzesgarria.

Ni joateko bezperan, Andresaren isilpeko **erromazalekeria** salatu nion Jehaneri. Aingeru Epaltza

---

erromeria *(orobat **erromeri** g.er.)* **1** *iz* ermita baten inguruko zelaietan egiten den baserritar jaia.

Leku askotan astero izaten zen **erromeria**. Pako Aristi

18:00etan **erromeria** Tapia eta Leturiarekin. Berria - Harian

Nafarro aldean, bai Alloztarrak eta baita Huitzitarrak ere, **erromeria** egiten dute apirilaren 16an, errogatibak eginez. Pello Zabala

Aian **erromeria** franko egiten zen garai batean (Aian bertan, Laurgainen, San Pedron, Santion, Urdanetan). Xabier Etxabe

Bizkaian, soinua sartu aurretik, panderoarekin bakarrik ere egiten zirela **erromeriak**. Iñigo Aranbarri

Erromeriak gazteak elkar ezagutzeko biltokiak ziren. Berria - Kultura

Hortarako, **erromeriak** antolatzen dituzte, Zeraingo elizaintzinean iragaiten direnak 9 igande aratsaldez. Herria

Euskal Herria, nazioa lelopean, bazkaria, hitzaldia eta **erromeria** antolatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Aratsean, arno jastaketa eta **erromeria** Kuxkutu taldearekin. Herria

Heldu dira **erromeriara**, eta hor ikusi du trikitilari bat zelaian, jo eta jo. Iñigo Aranbarri

Erromeria esatea, garai hartan, dantza esatea zen. Pako Aristi

Erromeriak oso gizakoiak, samurrak eta politak iruditzen zaizkit, antigoaleko gauzen xarma hori dute, eta gaurko pubak, tabernak, dantzalekuak eta neuronak disparatuta daramatzaten gaztez betetako kaleak, aldiz, basatiak iruditzen zaizkit. Pako Aristi

Erromeriako zabaldira iritsi zirenean, neskak elkarri bultza eta buila barreiatu ziren, eta Eligio zaldia gobernatzen geratu zen, bere anaia Onorino lagun zuela. Josu Zabaleta

Duela gutxi ikusi nuen, San Migeleko **erromerian**, baselizako atarian. Alberto Barandiaren

Trikitilari ugari daude Euskal Herrian, baina gehienek **erromerietan** jotzen dute, apenas sortzen dute abestirik, grabatzen dute diskorik. Berria - Kultura

Benetako plazagizona da, **erromerietako** soinu-jotzaile peto-petoa. Xabier Etxabe

Erromeria baztertzera etorri diren hitz berriak: berbena, dantzalekua, diskoteka, kontzertua. Pako Aristi

Esan liteke Pariseko funtzionarioek Senako bazterretan egiten zituzten **erromerietan** esku-soinua zutela beti aldamenean, janarien anoa bezain garrantzizko. Koldo Izagirre

Arrantzako bost ontzi handi agertu zitzaizkidan, jendez beterik, gizonezkoak, emakumezkoak, haurrak, Plouneven-eko **erromeriara** zihoazela. Josu Zabaleta

Abarketa zuriak jantzita, **erromeriakoak** diruditen zintadun horietakoak. Ramon Saizarbitoria

Hik ederki jotzen duk panderoa, nirekin **erromeriaz erromeria** ibiltzen hasi beharko huke Bikotearen mugimenduak, geriatrikoko lagunen jarrera, alditan isiltasun erlijiozkoaz lagundua, alditan poz-jario **erromeriazko** batez lehertua. Berria - Kultura

Urkiolako **erromeria** handia izaten zen. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

San Juan-Txikiko **erromeria** jendetsu hau, baserrietan horren sakon eta zabal sustraitua. Txillardegi

Erromeria bikaina izaten zen sasoi batean San Lorentzon. Iñigo Aranbarri

Ekainean, Bestaberri eguna pasata, sekulako **erromeria** egiten da Santa Feliziara. Patziku Perurena

Jexux bizikletaz joaten zen urrutiko **erromerietara**, bertan piezak entzun eta, gero, etxean, pieza haiek atera. Xabier Etxabe

Ez dakizue zein **erromeria** politak egiten genituen. Berria - Kultura

Aitak aipatu izan zigun ermitako **erromeria** famatura joan ginen familia guztia, bazkariarekin eta, egunera pasatzera. Jon Maia

Euskal **erromeriaren** oinarriak berak jarri zituen, bai soinua jotzeko eran eta baita jotzen ziren piezei dagokionez ere. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa.)

Bai, noiz edo noiz Jexuxek aipatutako **erromeria**-gizon zahar hura benetakoa izan zela besterik ez dut sinistu behar. Xabier Etxabe

Erromeria Eguna egingo da bihar eta 'Hari Gorri' dantza ikuskizuna izango da festako emanaldi nagusia **Erromeria** Eguna antolatuko du Ereintza dantza taldeak hilaren 17an. Berria - Kultura

Erromeria egun handi eta seinalatuetara eraman ohi den aldartearekin joaten ginen afari haietara. Pako Aristi

Kantaldia bururatzean, ez ahantz talo ta xingar on batzu erosten ahalko direla, tokian berean, Ezpela txarrangakoek alaituko duten **erromeria** denboran. Herria

Erromeria giroa zer izan den kontatzera bultzatu, eta bete egiten dira oraindik ere begiak. Iñigo Aranbarri

Zazpietarako hor zaudete **erromeria** tokian, beste jende askorekin batera. Pako Aristi

Hasi umetan hasi zan, baita, 14-15 urtegaz, **erromeri** plazak beragandu be. Xabier Amuriza

Erromeri giroko kantuak ziren, batez ere, entzuten genituenak, euskarazkoak zein gaztelerazkoak, eta herrikoiak. Ana Urkiza

Maskaradetako ikusgarritik landa, **erromeria** antzeko zerbait antolatu dela Urdiñarbeko pilota plazan. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nekez ohartuko gara mendi **erromeria** haiek benetan izan zuten funtzio sozialaz. Iñigo Aranbarri

Mendi **erromerietan**, modako piezak jotzen ziren, bertako erara moldatuak. Iñigo Aranbarri

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Zeraingo herriarekin batera Zerain dantza zain jaialdia antolatu du, « herri **erromeria** eta parte hartzailea». Berria - Kultura

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ostean herri bazkaria eta nazio herri-**erromeria**. Berria - Kirola

6 irud/hed

Zorionez, **erromeria** telefonikoa ere -eta geroko idazlana- dagoeneko josiriko hari-muturra zen, Anarekin tratua egina bainintzen. Aingeru Epaltza

Mota guztietako jendea jarri genuen larru gorrian estudio hartan eta baita aurkitzen genituen beste leku batzuetan ere, hura **erromeria**. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken erromerian (3); **bateko erromeriak** (4); **bilgunen erromeria** (3); **da erromeria** (9); **dira erromeriak** (3); **erromeria asko** (3); **erromeria bat** (3); **erromeria baten** (5); **erromeria egingo** (6); **erromeria egingo dute** (4); **erromeria egiten** (4); **erromeria eguna** (8); **erromeria eta** (8); **erromeria giroa** (10); **erromeria giroan** (4); **erromeria handia** (3); **erromeria hasi** (3); **erromeria izango** (3); **erromeria nazionala** (3); **erromeria plazan** (3); **erromeriak eta** (4); **erromeriaz erromeria** (3); **erromerietan bezala** (4); **erromerietan jotzen** (3); **eta erromeria** (15); **eta erromeriak** (4); **garai bateko erromeriak** (3); **garai bateko erromerien** (3); **garai bateko erromerietan** (3); **lehengo erromeriak** (3); **ondotik erromeria** (5); **zen erromeria** (6); **ziren erromeriak** (4)

---

erromero[1] *iz* landare usainduna, lore ezpaindun urdinak dituena *(Rosmarinus officinalis).*

Sofia etxe ondoko estalgunearen gerizpean dabil usain-belarrak muselinazko poltsatxoetan sartzen, mendafina eta **erromeroa** batez ere, gogokoen dituenak. Patxi Iturritegi

Atea ireki, begiak itxi, hamaika usain-belarrek perfumatutako airea biriketaratu -ezkaiak eta **erromeroak**, salbiak eta errudak, izpilikuak eta berbenak-, besoak zabaldu... eta mundua bere besoetan zeukàn haur txiki bat zela iruditzen zitzaion. Joan Mari Irigoien

Erromeroa hozkila da eta etxearen leku eguterenean jarri ohi da, eguzkiak berotu dezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Herritik hurbil bazen mendi bat zuhaitzik gabe, Teso deitzen ziotena, harritzaz osatua, arrakaletan estrepak, **erromeroak** eta izpilikuak sortzen zirena. Bardeako mendietan xarbota eta **erromero** basaren biltzea. Josu Zabaleta

Ohitura handia izan da Euskal Herriko baserrietan **erromero** landare bat edukitzea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lehenbiziko postuan gelditu, hamar zentabo **erromero**-hosto erosi, eta itzuli egin zen. Juan Garzia

Erromero sortatxo triste hau hamar zentaboan. Juan Garzia

Debekatutako sendabelarren artean daude, mihura, mandragora edo urriloa, basa **erromeroa**, heliotropoa, eta Estatu Batuetaik ekarritako erregaliza. Berria - Gaiak

---

erromero[2] erromesa, beilaria.

Bi gormutuak etzanik zeudela, biak lo gelditu ziren, eta euren ametsetan berehala Henrique zalduna agertu zitzaien, **erromero**-jantzi eta itxuraz, eta eskuan bazekarren palmondozko pordoi bat. Jon Alonso

---

erromes *(orobat **errumes** g.er.) iz* **1** santutegi batera erromerian doana; erromerian dabilena; behartsua. ik**pelegrin**.

1056an, Liège hiritik Santiagora **erromes** batzuek 36 egunez egin omen zuten bidea. Piarres Aintziart

Iaz, **erromes** gehienek Leon-Santiago tartea egin zuten, Done Jakueren urtea izan zelako. Berria - Harian

Milaka **erromes** Xabierrerako bidean. Berria - Euskal Herria

Erromes gehienek kulturarekiko jakin-minak bultzatuta egiten dute bidea. Berria - Harian

Eskuin itzuli eta aterpearen aitzinean nago: Trinitatearen eliza, **Erromesen** aterpe bilakatua da. Piarres Aintziart

Erromesen serora xumeak. Xipri Arbelbide

Irache hotelaren ondoan baitago **erromesentzat** eraiki aterpea, "Refugio de los Peregrinos" hitzak ikustean, uf! egin dut. Piarres Aintziart

Behin baino gehiagotan egokitu izan baitzait inguruotan **erromes** edo bidaiari galduren bat, eta haiekin partitu izan ditut etxea eta ogia, beharrezkoa izan denean. Joan Mari Irigoien

Prezio onak egiten dituzte **erromesentzat**. Piarres Aintziart

Aitaren bedeinkazioa barruko poz handiz hartu ondoren, munduan barrena joaten ziren, **erromes** eta atzerritar gisa, biderako ezer hartu gabe. Askoren artean

Erregelan esaten da, hain zuzen, anaiak bizi daitezela **erromes** eta arrotz bezala beren etxeetan, eta ez dezatela zerupean ezer eduki nahi, pobretasun santua besterik. Askoren artean

Oihu deiadarka karriketan dabiltzan egun hauetan, fededun edo fedegabe, aberats edo **erromes**, herritar edo atzerritar, denen egitekoa dela bakea. Piarres Xarriton

Beti eramanen diat erreka koxkor bat bihotzaren alboan, **erromes** baten gramola idurikoa, etxe guzien morrontzatik libratuko nauena. Patziku Perurena

Urtero milioika **erromes** joaten da Benaresera. Gotzon Garate

Erromako San Pedroren hilobian izana da **erromes**, eta bueltakoan, Jainkoaren borondatearen bila, otoitz egiten dio Jaunari bere bokazioa zein den erakuts diezaion. Askoren artean

Jerusalemera etorria zen **erromes**. Elizen arteko biblia

Lur honetan **erromes** dabiltzan Jaungoikoaren hiriko biztanleek, ostera, betiko bizitza, bakea izango dute. Imanol Unzurrunzaga

Gaitz erdi, ez zen bidez bide **erromes** ibili beharko. Aingeru Epaltza

Bi urtez **erromes** ibili ondoren, Finisterretik bueltan, Enekok Garazi hilik zela jakin zuen. Martin Anso

Erreguak areagotzen zituen, erlijio-betekizunen promesak egiten, eta Santuaren hilobira **erromes** joango zela semearekin batera, baldin eta hilen artetik pizten bazuen. Askoren artean

Benetan gaixotu zen, eta elkarrekin ibili ginen gero Bartzelonan urte pare batean, terapeutaz terapeuta **erromes**. Agurtzane Juanena

2 (izenondoekin)

Done Jakue bidea egiten ari zen **erromes** belgikar bat hil zen atzo, Iruñea eta Gares arteko zatian. Berria - Euskal Herria

Harremanaren bakezaletasuna Indiatik Txinara misiolari budisten eta Txinatik Indiara **erromes** budisten joateak adierazten zuen. Iñaki Mendiguren

Kerbalako santutegira Bagdadetik 110 kilometro hegoaldean oinez joaten ziren hiru **erromes** xiita hil ziren atzo Bagdadeko Hai al Adl auzunetik igarotzen ari zirelarik tirokatuta izan eta gero. Berria - Mundua

Egunez, elurrez estalitako bide galduetan ibiltzen nintzen, **erromes** bekatariaren itxurak eginez jatekoaren eskean mortu haietako etxaldeetan, eta gauez elurretan egindako zuloetan egiten nuen lo Jainko Jaunaren maitasunagatik, emaiozue limosna **erromes** behartsu eta gaixo honi! J.M. Olaizola "Txiliku"

Erromesaldia amaitutakoan, hamabost errublo eman zizkion **erromes** aberats batek, bidaian eskaini zion laguntzaren ordain. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beharbada hauen gatik noa hoin zalu, burua apal, iheska bezala: **erromes** iheslari bai, baina kar kementsu eta oldar temakor batek harturik. Piarres Aintziart

Iluntze aldera, **erromes** misteriotsu bat iritsi zen baserrira, gaua pasatzeko aterpe eskean. Martin Anso

Erromes fidagarriaren "label" horrekin Bideko aterpeetan onartua izanen naiz. berak ez dire jatera abiatuko non ez dituzten jadanik ase beren **erromes** maiteak. Piarres Aintziart

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beilari edo **erromes** tituluaren ardiesteaz biziki minbera dira zonbait. Herria

Horrela, etapaz-etapa, nire **erromes**-karta zigiluz betetzen joan zen, amaieraraino, Konpostelako Santiagoraino. Berria - Kultura

Bere egitekoa buruturik, nahi zuen guztia lorturik, **erromes**-makila bazter batera jaurti, eta esan zuela: "Aski duk!". Jose Morales

Txapin izpiliku-koloreak ziren, **erromes**-maskor eta lore-irudi soilez apainduak. Mirentxu Larrañaga

San Sepolcro, Massa Trabarian, Asistik La Vernara bidean dago, eta **erromes**-talde ugari igarotzen zen bertatik. Askoren artean

Compostelako Santiago Jerusalemekin batera **erromes**-leku ospetsuena zen Erdi Aroan. Askoren artean

Santespiritu, **erromes** ospitale baten inguruan sortua, hain zuzen ere, juduek XVI-XVII. mendeetan kolonizatutako auzoa. Javi Cillero

Orreagako fraide batek zuen zaintzen pelegrino edo **erromes** aterbe hau, beste lagun batzuekin batean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Erromes arropak zituen jantzirik, jaun kapitaina: kapelua, bizkarrekoa eta, hari itsatsia, Donejakuetik itzultzen direnek Lurraren Akabantzatik ekartzen duten oskola handia. Aingeru Epaltza

Erromes-kanta. Bedeinka ezazue Jauna, Jaunaren zerbitzariok, gaua beraren etxean igarotzen duzuen guztiok! Elizen arteko biblia

Erromes-jaiak.

Orreagako kolegio elizako datuak aintzat hartuta, orain urte batzuetatik hona nabarmen egin du gora **erromes** kopuruak. Berria - Harian

4 (izenondo gisa)

Utz diezaiogun, bada, andre **erromesari** bere hirira itzultzen halako dohain zoragarriz kontsolatua. Askoren artean

Espainian, gazte taldeak Eguberriri buruz elgarrataratu dira, jende xahar, **erromes** eta behardunen alde. Herria

Dakar 2004 hori badoa desertuetan gaindi larrez larre bere bidean auto, motoen tarrata eta burrunbetan gaindi, hango jende **erromes** gaixoaren lilluragarri batetik eta nardagarri gehienean. Herria

Ikusten duzue jende **erromesa** zer hersturetan den. Xipri Arbelbide

5 ***erromes bide*** ik **erromesbide**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrotz eta erromes (6); **bat erromes** (3); **bi erromes** (6); **da erromes** (5); **dela erromesen** (3); **diren erromesen** (4); **edo erromes** (4); **emaiozue limosna erromes** (3); **erromes abiatu** (3); **erromes bat** (13); **erromes batek** (3); **erromes baten** (3); **erromes batzuk** (3); **erromes behartsu** (3); **erromes behartsu eta** (3); **erromes bezala** (5); **erromes bezala haietan** (3); **erromes bidea** (3); **erromes dabilen** (4); **erromes eta** (13); **erromes eta arrotz** (4); **erromes eta atzerritar** (3); **erromes gehienak** (3); **erromes gehienek** (5); **erromes gisa** (3); **erromes horiek** (4); **erromes joan zen** (4); **erromes joaten** (3); **erromes kanta** (16); **erromes karta** (8); **erromes xiitak** (3); **erromesek ez** (3); **erromesen aterpe** (3); **eta erromes** (8); **eta erromes bezala** (4); **eta erromesak** (4); **eta erromesek** (5); **eta erromesen** (6); **honetan erromes** (4); **limosna erromes** (3); **limosna erromes behartsu** (3); **milaka erromes** (3); **nire erromes** (6); **nire erromes karta** (6); **santiagora erromes** (3); **zen erromes** (9); **zihoazen erromesentzat** (3); **ziren erromesei** (3)

---

erromesaldi **1** *iz* ermita edo santutegi batera debozioak bultzaturik egiten den bidaldia. ik **pelegrinazio**.

Urte hartan Jainkoari erregutu zion ezen eskain ziezaiola Mekara eta Medinara **erromesaldia** egiteko aukera, eta Hark onartu. Patxi Zubizarreta

Promes egin nion Itziarko **erromesaldira** joango nintzela, oinez, baldin eta gure ama sendatzen bazuen. Joan Mari Irigoien

Erromesaldia amaitutakoan, hamabost errublo eman zizkion erromes aberats batek, bidaian eskaini zion laguntzaren ordain. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erromesaldi ospetsuenen artean ditugu Galiziako Santiagora egiten dena, edo Italiako Erromara, baina badira beste hainbat leku ere **erromesaldiak** egiteko: Lourdes, Fatima, Arantzazu, Xabier... J.M. Olaizola "Txiliku"

3 irud/hed

Egun batez, anai Joan otoitz beroan ari zela, negarrez eta aieneka bere desira betetzen ez zelako eta bizitza honetako **erromesaldia** luzatzen zihoakiolako, Kristo bedeinkatua agertu zitzaion. Askoren artean

Tro Breiz **erromesaldia**, Erdi Aroan jaioa, Bretainiaren inguruan egiten da, erromesek Armorika zaharreko zazpi gotzain fundatzaileen erlikiak bisitatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

erromesaldi luze (3); **erromesaldia egitera** (3); **eta erromesaldi** (4); **kerbalako erromesaldi** (3); **mekarako erromesaldia** (3)

---

erromesbide *(orobat **erromes bide**) iz* erromesaren egiten duen bidea.

Gehienak bertako mujikak ziren, gizonak, andreak, zaharrak eta haurrak, baina bizpahiru erromes elkartu zitzaizkien, inbasioak beren **erromesbidean** harrapatuak, bai eta fraide batzuk eta pope bat ere. Karlos Zabala

Hain zuzen, fedea, otoitza, limosna, baraua, Mekarako **erromesbidea**, erituaren fintasuna eta senideenganako errukia, ziren zazpi betebehar horiek, eta batean huts egitea aski zen infernura erortzeko. Patziku Perurena

Calzada del Coto laster agertu zait eta ez naiz herrian sartzen, Vía Traiana edo Beilarien Galtzada, egiazko **erromes bidea** ez baitut hartzen. Piarres Aintziart

Zenbateko tradizioa harrapatu duten santu batzuen egunek! Ikusten da Santiagoko **erromes-bideak** inguru hauetan zeresan handia izan zuela. Pello Zabala

Halamoduzko jendaje askok, uzta garaia bukatu ondoan, **erromes bidea** hartzen zuen Espainia aldera, bere familia osoarekin, eta beren kopla negartiak kantatuz, hemen jasotako sosekin. Patziku Perurena

Ez dizuet xehero kontatuko nire **erromesbidea**. Matías Múgica

---

erromeskide *iz* erromes talde bateko kidea.

Erromeskideen artean zelakoan egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren ahaide eta ezagunen artean. Elizen arteko biblia

---

erromestasun *iz* pobretasuna.

Erromestasun gorrian, limosnatxoren bat eskatzen. Gotzon Garate

Gizahilketa (eta buru-hilketa) pasio-hilketak, sexu delituak, lapurreta-mota batzuk, **erromestasuna** -eta ondoren euren bidez jaraunspena, inguru neurogenoa, eraso edo autozigortze jokaerak, perbertsioak, bulkada hiltzaileak, sugestibilitatea, etab.-. Xabier Arregi

---

erromeste *iz* pobretzea.

Ohoinek hola segituz, elizen **erromestea** aintzina joanen da, Protestanten tenploen pare bilakatu artio, tabernaklea salbu. Herria

---

erromileta *iz* sorta.

Vatikanoko buruaren heriotzak, epitetoen neurrigabeko loratzea ekarri du, benetako **erromileta** estilistikoa. Iñigo Aranbarri

---

erromintxela **1** *iz* ijito euskalduna.

Euskaldunak ziren -euskaraz zekitenak, alegia- lehengo ijito, ungriano, buhame eta motxaileetako asko, baina bazituzten euren hitz bereziak, ijito ez zirenek ikas ez zitzaten isilpean gordetzen zituztenak: egaxua 'ijito ez dena', **erromintxela** 'ijito euskalduna', gaxina 'haurra'. Koldo Zuazo

2 ijito euskaldunen euskara.

Txakurrak espainiar poliziari, oiloak frantsesei, zipaioak ertzainei... eta uniforme artean asko bereizi gabe xukela, alegia, txakurra **erromintxelaz** ijitoek. Iñigo Aranbarri

Beste hitz batzuk, ordea, **erromintxelatik** hartu ditu egileak mailegu merkean. Koldo Izagirre

---

erromulotar *izond/iz* Erromaren alegiazko fundatzaile Romuloren jarraitzailea.

Piztia baten apatx erdibituak utzitako oinatzaren atzetik bidalitako txakur aldrak beraganaino garamatza, eta ahate zuriak, **Erromulotarren** gotorlekuaren zaintzaileak, giza usaina urrundik somatzen du. Xabier Amuriza

---

erromutur *iz* erroaren mutura.

Estarta bazterretako ezpondapeak ere oso gogoko izaten ditu, bere habiari kontzeko xokanahi gorderik edo **erromutur** bihurririk inon bilatzen badu, benpe; baita borda zaharretako hegazpeak edo korrazpiak ere, jendea bakan samar ibiltzen denekoak badira. Patziku Perurena

---

erron ik **ron**.

---

erronbila *iz*

Erronbila edo mandasoka luze bati, aurreko muturrean harrikonkor bat lotu, eta bota behitik goiti, aurreneko adarrik sendoskoena gurutzatu arte, eta harriaren pisuak berak ekarri zigun atzera sokamuturra lurreraino. Patziku Perurena

---

erronbo *iz* geometrian, lau aldeak berdinak eta binaka paraleloak dituen laukia.

Arbel batean marrazturiko zirkunferentzia bat, triangelu bat, **erronbo** bat, osoki hauteman ditzakegun formak dira. Juan Garzia

Piezak jarrita daudenean eta beren isuri egokia eman zaienean, ondo igurtziko dira, alegia, marmolezko losak baldin badira, ez dadin ertzik geratu kanpora aterata **erronbo**, triangelu, karratu edota hexagonoetan, baizik eta junturak egon daitezen elkarren artean lau-lau jarrita. Santiago Iruretagoiena

Espazio horrek haiexek jaurtikitzen zituen berriz, orain zirkulu gorrien gisara, eta haiek barrenean beste zirkulu gorri batzuk zituzten, aurrera egin eta eztanda egiten zutenak kolore guztietako mila **erronbo** sortuz, eta **erronboak** han eta hemen galtzen ziren izarrena bezalako espazio sekulakoan. Fernando Rey

Une batean gelaren forma **erronboarenera** aldatu zuen. Koro Navarro

Bere gelako sabai **erronboz** ildoztatura itzulia aurpegia. Juan Garzia

Marga hantxe zegoen, nire zain itxura batean, **erronbo** zuriak zituen igeritako bat jantzita. Juan Luis Zabala

Salmahaia handia zen oso, eskuinaldean zegoen, eta jendeari lan ederra iruditu zitzaion oroz gain, marmol arrosezko **erronboek** marrazten zizkioten medailoi simetriko haiekin. Karlos Zabala

Hondartza hartan milaren bat lagun zeuden mugitzeko batere tokirik gabe, eta, karaoke kantariak bezala, erreta zeukaten askok azala, hemen gorriune biribil bat, han **erronbo** formakoa, haraxeago, bainujantziaren goiko eta beheko ertzetan, marrubi koloreko zerrenda luzeak. Bernardo Atxaga

Oso forma bakun bat (koadro bat), 45º-z biratuta aurkezten baldin bada, **erronbo** gisa ikusiko da. Ohiko 4-2-3-1eko joko-sistema utzi, eta zelai erdian **erronbo** moduko bat antola dezake Aguirrek, aurrelari lanetarako bi gizon utzita. Josu Zabaleta

---

erronbodun *izond/izlag* erronboak dituena.

Bi leihatila zituen ostatuak kanpora begira, beira puska **erronbodun** txikiz osaturiko kristalez, errezela kolorbako koipetsuz bereiziak barnean, argiaren isla ahula gelan sartzen uzten ez zutenak. Felipe Juaristi

Futbol atezainaren posturan jarri naiz, hankak zabalik eta enborra makur, eskuekin belaun gainetik prakei tira eginez, nire **erronbodun** galtzerdiak agerian uzteko batere beldurrik gabe oraingoan. Harkaitz Cano

Ezkaratzera iritsi baino lehen, gerrikoa askatu eta beherantz tira egiten nien prakei, **erronbodun** galtzerdi gorrotagarri haiek ezkutatzeko. Harkaitz Cano

---

erronda *(ETCn **157** agerraldi)* **1** *iz* ostatu, taberna edo kidekoetan, lagun talde bateko kideen artean banatzen den edaria edo janaria; tabernaz taberna egiten den ibilaldia.

Ez dut txikiteoan ibiltzeko ohitura handirik, baina eguerdian kalera irten naiz, nire koadrilak egiten duen **erronda** kuartel aurretik pasatzen baita. Anjel Lertxundi

Hurrengo bi egunak antzekoak izan ziren: Yassin kioskora azaltzen zen, luzeago edo laburrago solastatzen ginen, tabernetako **erronda** egiten genuen -denbora asko pasatzen genuen taberna bakoitzean- eta bederatziak heltzen zirenean agur esaten genion kuwaitarrari. Iban Zaldua

Ondotik beste lau **erronda** etorri ziren, elkarren osasunari edanak. Matías Múgica

Atera beste **erronda** bat, Martzial. Unai Iturriaga

Beste **erronda** bat eskatu zioten Alazneri; ez zeukaten handik mugitzeko gogorik. Fernando Morillo

-Beste **erronda** bat, lagunak! Unai Iturriaga

Aizak, Burke, **erronda** bat nire kontura guztiontzat. Lopez de Arana

Farringtonek **erronda** bat ordaindu zien denei. Irene Aldasoro

-Zerbait jango dugu **errondan** hasi aurretik? Unai Iturriaga

Edan zuten, bada, elkarrekin eta Andreasek bigarren **erronda** pagatu zuen. Matías Mujika

Turisten jatetxeetan barrena eskean ibili ondoren, pizzaren bat jan eta Chianti-baxoerdiak edatera; **erronda** ugari ordaindu nien, bata bestearen segidan: parranda polita antolatu zen. Joxe Austin Arrieta

Beste birra **erronda** batzuk eta beste lerro pare bat ere joan ziren ondorengo orduetan. Unai Iturriaga

2 gauez pertsona talde batek kalez kale egiten duen zaintza; zaintza hori egiten duen pertsona taldea.

Senarra ubideetako **erronda** egiten ari zenean ateko zuloa aurkitu zuen, eta polizia bati deiturik, eraikineko beheko solairu osoa miatu zuten. Josu Zabaleta

Guardia zibil pare bat irten da, **erronda** egitera. Anjel Lertxundi

Zinpeko gordia batek, **erronda** egiten ari zenean. Berria - Kultura

Haiek komisaria hartu aurretik, ordea, **errondatik** etorritako bi soldaduek eraman dute besapeetatik. Felipe Juaristi

Pixka bat harantzago joanez harresira hurbildu ginen, baina justu une hartan **erronda** pasatzen ari zen, eta ezinbestean geldi geratu behar izan genuen, berriz ere, isil-isilik gari alor batean. Jon Alonso

Bi soldadu behera jaitsi dira, **erronda** egitera. Felipe Juaristi

Kanpoan, patioan, urratsak, **errondan** dabilen jendearenak bailiran. Juan Garzia

Ostatuak dozena erdi bezerori ematen zion aterpe: berandu afaldu aitzineko azken **errondan**, batzuk; goizik afaldu ondoko lehen kopaxkan, bertzeak. Aingeru Epaltza

Bautistak fusila kendu zion **errondako** beste bati, eta mandatariari bi gizonek batera ekin zioten. Koro Navarro

Museoko zuzendaria, *Gaueko* ***Erronda*** izeneko koadroaren aurrean utzi zuen etzanda, "ikas ezak militarren bizitza nolakoa den". Felipe Juaristi

Ordurako hamar ginen harresi gainean, orduan **erronda** etorri zen, arineketan, eta alde bietatik labankadak hasi ziren. Jon Alonso

Kolore askotako espainiar armada-zainak ikusi nituen, harresiaren gaineko beren **erronda**-bidean kanoien artetik ibiltari. Txillardegi

-Bai, gurekin polizia **errondan** eta jendeen laidoen menpe legokek. Itxaro Borda

3 irud/hed

Ertzaintzaren kotxe bat eguneroko **erronda** egiten ari da Idoiaren ondotik igaro denean. Eider Rodriguez

Goi urdinean zopiloteak **errondan**. Joseba Sarrionandia

Bera bizi zen eta lan egiten zuen herrira gonbidatu ninduen, British Columbiako Branfordera, alegia: erietxean berarekin **errondak** egin, ebakuntzetan lagundu, eta lanean ikustera. Xabier Olarra

Ia ezin sumatuzko olatu-hotsa zuen argi-**errondak** lagun. Jon Muñoz

4 elkarrizketa txanda sorta.

Ibarretxek akuilu izan nahi du normalizazio prozesurako oinarriak hitzartzeko ahaleginean, eta alderdiekin beste **erronda** bat egin du helburu horrekin. Berria - Harian

Juan Jose Ibarretxek ez du oraindik erabaki inbestidura saioaren aurretik alderdi politikoekin beste elkarrizketa **erronda** bat egingo ote duen. Berria - Harian

EBko Nekazaritza ministroek Dohako **Errondari** buruz Munduko Merkataritza Erakundearekin dituzten negoziazioei buruz hitz egingo dute datorren astelehenean. Berria - Ekonomia

Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integraleko Jarraipen Batzordeak teknikarien proposamenak ezagutu ostean, bigarren balorazio **erronda** egingo duela gaineratu zuen diputatuak. Berria - Euskal Herria

Bilera **erronda** egingo du asteon Likshai Mittalek. Berria - Ekonomia

5 irud/hed

Horratx, nola baieztatu ziren geroago bere susmoak: handik hiru hilabetera, auzia hasi zen egunean, errekonozimendu **errondan**, Linok zimino hura Elsa ez zela salatu zuen. Harkaitz Cano

6 mutil talde bat, gauez, jotzen eta kantatzen, neskatxen etxez etxe ibiltzea.

Amaitu ziren korruak eta neskatxen balkoipeetako **errondak**, eta pobreen igandeetako dantza saloia ere itxi egin zuten. Jon Maia

Koplak, nagusiki eskerako eta **errondarako** erabiltzen dira eta aspaldikoa da euren jatorria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Denak lotan zeudelarik, euria goian-behean hala ere, gitarra jotzen hasi zen, **errondan** bezala, eta printzesa esnarazteko ipuina ere esaten hasi zitzaion Mariari, gitarra-doinuez lagundurik. Felipe Juaristi

7 ingurabidea.

Baionara sartzeko **erronda** handi horietatik batean geunden. Daniel Landart

8 *izond/iz ipar* biribila.

Horrela daiteke froga lurra **erronda** dela, alderdi batean ikus daitekeen izartegia ez baitaiteke bertzaldean ikus. Aurelia Arkotxa

Lili Marlenen bulardi **errondan** oroitzak opari sentimental zaizkit. Itxaro Borda

Batzuetan Grenet zubi gorriaren azpira zihoazen eta, han pizten zuten sutearen ondoan, emazte gaztea bere haurdun sabel **errondaren** ferekatzen jarrai zezaketen. Itxaro Borda

Harri kozkor bat urerat botatzen delarik egiten ditu halako **erronda** ttipi batzu, laster desegiten direnak ur gainean, batzu bertzen ondotik. Herria

Xarlesen ahurrak Josyren azpi oparoen **erronda** ikaragarria haztatzen zebiltzan. Itxaro Borda

Ehortzeta arropak ziruditen oihal puska presaka josiek markatzen zuten Maddiren bost hilabeteko sabelaren **erronda** bekatorosa. Itxaro Borda

Hain fierra bere gorputz zaintsua xut-xuta emaiten duelarik, buztaneko lumak **errondan** lorian idekitzen dituela indi-oilo batek bezala. Michel Oronoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste erronda bat (9); **bi erronda** (3); **bigarren erronda** (5); **bilera erronda** (4); **bilera errondaren** (3); **elkarrizketa erronda** (4); **elkarrizketa errondaren** (3); **erronda bat** (16); **erronda beltz** (3); **erronda egin** (3); **erronda egiten** (9); **erronda egiten ari** (4); **erronda egitera** (4); **errondaren barruan** (4); **gaueko erronda** (3); **zuen erronda** (3)

---

errondaila *iz* Espainian, gitarrez, panderoez eta kideko instrumentuez abesti herrikoiak jotzen dituzten musikoek osaturiko taldea.

Larunbat 4ean, goizeko 9etarik harat ainitz animazio: dianak, gaitero, **errondailak**, pilota, euskal joko, erakusketak eta bertze asko gauza. Herria

---

errondari *iz* errondan ibiltzen dena.

Ikasle sos gabeen eta **errondari** adinekoen behialako bilgune, bere bezeria goratzea lortzen ari zen aspaldi horretan, sofistikazio aizunik gabeko zapore "egiazkoen" usman. Aingeru Epaltza

---

errondatxo *iz adkor* erronda txikia.

Egunero bezala, **errondatxoa** egiten ari da ikastetxearen inguruan. Berria - Euskal Herria

---

erronka[1] *(ETCn **2.010** agerraldi)* **1** *iz* norbaitek aurre egin behar dion egoera zail edo korapilatsua; norbaitek beste pertsona bat zerbait edo norbait gainditzera akuilatzea. ik **desafio, aupada; axut**.

Erronka hori izan zen; amaierako sekuentzia izan zitekeena hasieran jartzea eta ondoren, horretara nola iritsi garen kontatzea. Berria - Kultura

Akaso hurrengo **erronka** hori izanen da, txandaka bada ere, Egaña, Iturriaga, Lujanbio, Elortza, Arozena, Colina... bilduko dituen blog baten sorrera. Berria - Kultura

Erronka dute 7.800 milioi euro fakturatzea eta 275 milioi euro inbertitzea 2006-2009 plan estrategikoak iraun bitartean. Berria - Ekonomia

XXI. mendeko hezkuntzak dituen **erronken** inguruan mintzatu zen Felix Etxeberria. Berria - Euskal Herria

XXI. mendeko Euskadi da gure **erronka** eta horrek, gure iritziz, lasaia baina etengabekoa izan behar duen aldaketa sakon bat eskatzen du. Berria - Euskal Herria

Orain, hiru **erronka** ditu esku artean: Nerbioi ibaia igerian egitea, Japoniako edo Txinako ibai bat zeharkatzea eta Euskadiko Sei Orduetan igerileku batean sei orduan igeri egitea. Berria - Kirola

4,50ekoa zen hurrengo **erronka**, herenegun ezarri zuen Espainiako marka berria. Berria - Kirola

Gure dema, desafio, apustu, **erronka**, zeingehiagoka guztiak. Piarres Xarriton

Planetako biztanle guztiek bizimodu duina izatea baita **erronka**, naturak ezartzen dizkigun mugen baitan jokatuz betiere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erronka horri Errusian hiru erantzun desberdin eman zitzaizkion. Iñaki Mendiguren

-Entzun, Israelgo soldaduak, entzun nire **erronka**! Jose Antonio Mujika

Kapare batek bilau bati **erronka** egiten zionean, oinez aurkeztu behar zuen, ezkutua eta makila hartuta. Iñaki Iñurrieta

Erronka egin zien honek israeldarrei, baina Daviden anaia Ximearen seme Jonatanek hil egin zuen. Elizen arteko biblia

Erronka egiten duena eta **erronkari** erantzuten diona. Iñaki Mendiguren

Gizonak bere buruarengan zuen konfiantzari **erronka** jo nahi balio bezala, haren hantusteari, haren irribarre gailenari. Patxi Zubizarreta

Bere errepublikar adiskideetariko batek, neska gazte berberaz maiteminduta hura ere, duelorako **erronka** jo zion Galoisi. Jon Muñoz

Orain **erronka** jotzen dizut ezetz asma horrek nora eraman zaitzakeen. Jon Muñoz

Iranek nazioarteari jotako **erronkak** presio handia jarri du aste honetan petrolioaren prezioen gain. Berria - Ekonomia

Duela bi aste Bilboko taldeak **erronka** bota zien zaleei, Euskal Herrian saskibaloi partida bat ikusteko inoiz elkartu den jendetza handiena pilatzea, eta ikusleek ez dute huts egin. Berria - Harian

Orduan, Eurialo borrokalariak **erronka** bota zion: [...]. Juan Kruz Igerabide

Etsaiari **erronka** botako zaio beraz: [...]. Josu Zabaleta

Neskak, begietan **erronka** eta oldarkortasuna, hoztasunez galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Globalizazioak lan arriskuen arloan ekarri dituen **erronkak** nabarmendu zituen. Berria - Ekonomia

Jakin badakigu euskararen **erronkak** etxean ditugula, gure hizkuntzaren geroa Euskal Herrian jokatu eta irabazi behar dugula. Berria - Euskal Herria

Idazle naizenez gero, nire buruari **erronkak** jartzen saiatu naiz, eta aurrera egiten. Ana Urkiza

Deabruari **erronka** irabazteko, kilimak ezagutu behar zaizkiola. Anjel Lertxundi

Gaur egun euskara hutsean emititzen duten tokiko telebistentzat ez da erraza izango digitalizazioaren **erronkari** eustea. Berria - Harian

Bacheletek izango dituen **erronken** artean, besteak beste, hauteskunde sistema proportzionala ezartzea, diktadura garaitik oraindik indarrean dauden lan arloko legeak aldatzea [...], ingurumena babestea eta diktadura garaiko torturatzaile eta hiltzaileen zigorgabetasunari aurre egiteko konpromisoa gauzatzea daude. Berria - Harian

Beilarietako bat **erronkan** hasi zaio bisitariari. Anjel Lertxundi

Gure arteko komunikazioa ezinbestekoa baita bioteknologien **erronkari** aurre egiteko. Berria - Gaiak

Hori al da eskolak dituen **erronkei** ekiteko benetako arazoa? Berria - Euskal Herria

-Ni ez naiz ezeren beldur. -Neskak, **erronkaz**, orduan. Patxi Zubizarreta

"Alde egin zenuen, eta berriro itzuli zara, zergatik?" **Erronkaz** begiratzen dio. Oskar Arana

Luteziak bere esku gurutzatuetan kokotsa jarri eta probokazio aire batez begiratu zidan, ia **erronkaz**. Matías Múgica

Hamidak begirakune **erronkazkoa** josi zion; pazientziak errea zegoen, grinatsu, borroka noiz hasiko. Patxi Zubizarreta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erronka polita iruditzen zait pelikula bat enkargu moduan egitea. Berria - Kultura

Erronka polita, baina oso zaila. Berria - Harian

Orain **erronka** izugarria dugu, orain arte lortu ez duguna etorkizunean lortu ahal izateko: 16 urterekin gure gazteak zikloa amaitzerakoan hiru hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko gai izango diren hezkuntza sistema lortzea. Berria - Harian

Frantzisko **erronka** berri baten aurrean aurkitzen da: bere bizi-proiektua berrirakurri beharrean, alegia, emakume gazte haien eskakizunetara egokitzeko. Askoren artean

Erronka berri horiek, funtsean, inguru lehiakorragoan egotetik etorriko zaizkigu, eta inguru horretan, mamiak garrantzia galdu gabe, irudiak ere zeresan handia izango du. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Airbusen **erronka** komertzial berria A380 modeloa da. Berria - Ekonomia

Erronka sindikal, sozial eta politikoei aurre egiteko konpromisoak zehazten ari gara. Berria - Ekonomia

Hortaz, datozen urteotarako **erronka** nagusia da oinarrizko ikerkuntza eta estrategiazko ikerkunta behar bezala sustatzea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Politika mailan, berriz, erabateko demokrazian aurrera egitea da **erronka** nagusia orain. Berria - Mundua

Lan honek **erronka** berezi bat dakar abeslari guztientzat. Berria - Kultura

Diskriminazio hesi hau **erronka** serioa da guretzat, palestinarrontzat. Berria - Mundua

Makina erreminta sektoreak **erronka** indartsua du aurrean eta krisialdiaren putzuan ez badu erori nahi neurriak hartu beharko ditu ahalik eta azkarren. Berria - Gaiak

Erronka harroak ahotik kenduko dizkizut, eta ez zara harrezkero harropuztuko nire mendi santuan. Elizen arteko biblia

Erronka militar bati emandako erantzun baketsuaren adibide harrigarri bat [...] Gizarte Siriakoak mundu babilonikoari egin zion inguraketa izan zen. Iñaki Mendiguren

Erronka ugariri aurre egin beharko dio orain Greziako aginte kontserbadore berriak. Berria - Mundua

Elizaren oraingo **erronka** nagusia sortzetik duen bera da. Ebanjelioa zabaltzea. Berria - Harian

Etorkizuneko **erronkei** «neurria hartu» ahalko die hala. Berria - Ekonomia

Biltzarrean batik bat geroko **erronkez** jardun zuten BBVAko buruek. Berria - Ekonomia

Benetako **erronka** aurten du, urtea bukatu baino lehen lehenbiziko unitateak Singapore Airlines konpainiari entregatzea espero baitu. Berria - Ekonomia

Beste urte batean absenta izan zen nobedadea, 60 gradutik gorako pattar azkar bat, ahoa eta sabela erretzen zizkizuna, baina gure gizontasunerako **erronka** huts egin ezinezko bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Edozein hizkuntzak praktikaren praktikaz lortu duen ahalmen hori eguneroko **erronka** da guretzat; zelanbait hizkuntza "asmatu" behar dugu egunero. Ana Urkiza

Duelorako **erronka**, ordea, bere adiskideetariko batek jo zion, bera bezalako errepublikazale batek. Jon Muñoz

Hura izan zen matematikaren historiako aurreneko **erronka**. Jon Muñoz

Horrelako baldintzak lortzea eta behaketak burutzea ez da edonolako **erronka**. Berria - Gaiak

Mundu mailako **erronkei** dagokienez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Erdi bromazko **erronka** bota zion baserritarrak, leuntze aldera. Koldo Izagirre

Gerora begirako **erronkez** eta hurrengo plan estrategikoak iraun bitartean lortuko ei dituztenez jardun dute. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sarritan, kaleko biraoak botatzen zituzten, baina ez zituzten axolagabeki esaten, gizonezkoek bezala, ezpada halako garraztasun berezi batekin beti, nolabaiteko **erronka**-doinu batekin. Hybrisak ez du soilik aditzera ematen hainbatek zientzialarien **erronka**-jotze jasanezintzat daukatena. Mendebaldeko Zibilizazioaren hazkundean ere ikusten dugu **erronka**-serie bat erantzun arrakastatsuak sortarazten. Jose Morales

Carlosen **erronka**-eupadek garbi adierazten zuten nik miraria ez ikusteko hark zuen beldur barren-barrenekoa. Juan Garzia

Begiradak trukatu zituzten, **erronka** puntuari eutsiz, beti zen berdin handik pasatzen zen bakoitzean. Iñaki Iñurrieta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urteroko jokoen diseinu-**erronkan** (The Game Design Chalenge) lehiakideek erdietsi behar zuten helburua zera da: Bakearen Nobel Saria irabazi dezakeen jokoa diseinatzea. Berria - Gaiak

Komunistak, kaletik, duelu-**erronka** bota zion errepublikarrari, "baldin bahaiz" amorruz betea. Juan Kruz Igerabide

Emakume batek norbaiti bere aldezkaria izendatu gabe borroka-**erronka** egiten bazion, ez ziren jasotzen borroka-bahiak. Iñaki Iñurrieta

Niri bizar-**erronka** jotzera heldu al haiz Danimarkan? Juan Garzia

Gizarte eta ekonomia **erronkak** gaindi daitezen elkarrizketa funtsezkoa dela azaldu zuen. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurreneko erronka (5); **aurtengo erronka** (10); **baina erronka** (12); **batek erronka** (4); **benetako erronka** (9); **bere erronka** (9); **berriaren erronka** (6); **beste erronka** (21); **beste erronka bat** (12); **bi erronka** (13); **bi erronka nagusi** (4); **bigarren erronka** (4); **biltzeko erronka** (4); **da benetako erronka** (4); **da erronka** (41); **da gure erronka** (8); **dago erronka** (5); **dela erronka** (4); **dira erronka** (4); **ditu erronka** (4); **dituen erronka** (7); **du erronka** (23); **duen erronka** (9); **duen erronka nagusia** (4); **dugu erronka** (9); **dugun erronka** (6); **dute erronka** (11); **duten erronka** (8); **egitea erronka** (5); **egiteko erronka** (10); **egungo erronka** (4); **ere erronka** (10); **erronka bat** (43); **erronka bat da** (8); **erronka bat izan** (4); **erronka bat izango** (5); **erronka baten** (5); **erronka bati** (6); **erronka batzuk** (6); **erronka berri** (16); **erronka berri bat** (4); **erronka berria** (4); **erronka berriak** (16); **erronka berriari** (6); **erronka berriei** (27); **erronka berriei aurre** (17); **erronka berrien** (5); **erronka bota** (16); **erronka bota zion** (5); **erronka botatzen** (5); **erronka da** (21); **erronka dela** (5); **erronka du** (12); **erronka dute** (6); **erronka ederra** (7); **erronka egin** (22); **erronka egin zien** (4); **erronka egin zion** (6); **erronka eginez** (8); **erronka egiteko** (10); **erronka egiten** (21); **erronka ekonomikoak** (4); **erronka erakargarria** (4); **erronka ere** (4); **erronka erraza** (6); **erronka eta** (25); **erronka ez** (10); **erronka ez da** (5); **erronka ez zen** (4); **erronka garrantzitsua** (7); **erronka gisa** (5); **erronka gogorra** (12); **erronka gogorra izango** (4); **erronka handi** (10); **erronka handi samarra** (4); **erronka handia** (64); **erronka handia da** (18); **erronka handia dela** (6); **erronka handia dute** (4); **erronka handia izan** (5); **erronka handia izango** (6); **erronka handiak** (7); **erronka handiei** (7); **erronka handiena** (4); **erronka hartu** (5); **erronka hau** (5); **erronka hori** (19); **erronka horiei** (10); **erronka horiek** (8); **erronka horren** (7); **erronka horri** (13); **erronka horri aurre** (7); **erronka hura** (4); **erronka izan** (8); **erronka izango** (15); **erronka izango du** (9); **erronka izugarria** (4); **erronka jarri** (11); **erronka jo** (11); **erronka jotzen** (11); **erronka latza** (23); **erronka latza du** (5); **erronka latza izango** (4); **erronka makala** (5); **erronka moduan** (4); **erronka nagusi** (13); **erronka nagusia** (70); **erronka nagusiak** (18); **erronka nagusiena** (4); **erronka nagusietako** (9); **erronka nagusietako bat** (9); **erronka nagusietakoa** (4); **erronka nagusitzat** (4); **erronka onartu** (5); **erronka pertsonala** (4); **erronka polita** (17); **erronka polita da** (5); **erronka polita dela** (5); **erronka politiko** (5); **erronka txikia** (4); **erronka zaila** (20); **erronka zaila da** (6); **eta erronka** (63); **eta erronka berriei** (7); **etorkizuneko erronka** (4); **eusteko erronka** (12); **eusteko erronka izango** (6); **ez da erronka** (5); **ez du erronka** (4); **gure erronka** (24); **hiru erronka** (9); **hori erronka** (8); **hori erronka handia** (4); **hurrengo erronka** (13); **irabaztea erronka** (4); **irabazteko erronka** (4); **izango du erronka** (4); **lehen erronka** (19); **lortzeko erronka** (4); **mendeko erronka** (4); **nire erronka** (7); **nolanahiko erronka** (4); **orain erronka** (6); **oso erronka** (5); **txapelari eusteko erronka** (6); **zein erronka** (6); **zen erronka** (9); **zuen erronka** (16); **zuten erronka** (4)

begirako erronkak (4); **dituen erronkak** (9); **ditugun erronkak** (4); **ditutzten erronkak** (9); **erronkak azaldu** (4); **erronkak ere** (5); **erronkak eta** (10); **erronkak ez** (5); **erronkak ez dira** (4); **erronkak zehaztu** (4); **eta erronkak** (16); **eta etorkizuneko erronkak** (4); **etorkizuneko erronkak** (9); **etorkizunerako erronkak** (4); **euskararen erronkak** (4)

dituen erronkei (9); **dituen erronkei aurre** (5); **dituen erronken** (7); **erronkei aurre** (23); **erronkei aurre egin** (5); **erronkei aurre egiteko** (17); **erronkei buruz** (6); **erronkei erantzun** (4); **erronken artean** (4); **erronketako bat** (10); **eta erronkei** (7); **eta erronkei buruz** (4); **eta etorkizuneko erronkei** (4); **etorkizuneko erronkei** (10); **etorkizuneko erronkei aurre** (6)

---

erronka[2] *iz ipar* zerrenda.

Mirakuilu hori hautatu zuten Erroman dohatsuen **erronkan** Terexaren ezartzeko. Herria

35 ontzi erosiak izan dira, arraunlariak estatuko hoberenen **erronkan** kokatzen dira, kirolari guztien beharrei ihardesteko badira 12 trebalari diplomatuak eta berrogei arraunlari aitzinara ateratzen direnak. Herria

Sara, Frantziako herri polliten **erronkan** izaki eta, badituela asko gune xoragarri, zinez udatiarren plazer osoaren iturri. Herria

---

erronkajole *iz* erronka jotzen duen pertsona.

Perfumaturik eta ile-gantzuturik zegoen eta arrunt itxura sasidotorea zuen: *souteneur* bat ematen zuen, edo, hobeki esan, putazain-papera egiten zuen antzezle txar bat; edo eta kale izkinako **erronkajole** horietako bat. Juan Garzia

---

erronkaka *adlag* erronka joz.

Erronkaka hasi zuen jarduna, eta lehen estropadan kexu zen, «flojo xamarra jarri digute /lenbiziko tandarako», irri egin zion Getariari. Berria - Kultura

---

erronkalari *izond* erronka jotzen duena.

Han idatzi zituen bere "Quaestiones Parisienses" Gonsalvus de Vallebona Ordena Frantziskotarraren Nagusiarekiko eztabaida ausart eta **erronkalarian**. Joan Mari Lekuona

---

erronkari *adlag* erronka joz.

-Zer gertatzen zaio? -esan zuen Ronek **erronkari**. Iñaki Mendiguren

-Hara, Saragueta -Togasek, gozo eta aldi berean **erronkari**; ezker begia argi bulegoko beirateaz harata, eskuin begia ilun nire aldera-. Aingeru Epaltza

Begiak gorrotoz beterik, **erronkari** mintzatu zitzaion amari: [...]. Anjel Lertxundi

Espiritu honekin ekin zioten, **erronkari** eta gogoberoz, buru-langile izan ordez esku-langile izateari, hiritar izan ordez baserritar, bitartekari izan ordez ekoizle, finantzari izan ordez nekazari, dendari izan ordez gerrari, martiri izan ordez terrorista izateari. Iñaki Mendiguren

Alarikok Erroman egindako arpilaketak jada bukaera iragarri ondoren, oraindik Rutilio Namaziano galiar poeta Erromaren hilezkortasuna **erronkari** aldarrikatzen aurkitzen dugu. Iñaki Mendiguren

---

erronkariar *izond/izlag* Erronkarikoa, Erronkariri dagokiona.

Bi amikuztar izan ezik, denak bortuz haraindikoak ziren, Migelekin batean gerlan ibiliak: bi **erronkariar**, baztandar bat, ameskoar bat eta Erriberri aldeko bertze bat. Aingeru Epaltza

Izaban (Nafarroan) elgarretaratu dira mugaren bi aldeetako **erronkariar** eta xuberotarrak. Herria

Ana Barrena **erronkariarrak**. Patziku Perurena

---

erronkariera *iz* Erronkariko euskal dialektoa.

Katalunia independentea balitz, berehala ikasiko lituzkete euskalkiak eta berpiztuko **erronkariera**. Markos Zapiain

Koldo Artolak Antonia Anaut izabarrari hartutako hitzak, **erronkarieraren** testigantzarik garrantzitsuena. Berria - Kultura

Botto ninak **erronkarieraz** abestutako kantua «baldar eta mingarria» zela idatzi zuen Azkuek eta haren ordezko hitz bat proposatu. Berria - Kultura

Ehe, lixiba-ura (**erronkarieraz**). Iñaki Arranz

Erronkarierazko esaera zahar bat da. ezagun zaizkigu, besteak beste, zubererazko ü-ü eta **erronkarierazko** u-u egitura "adostuak". Aitor Arana

---

erronkatsu 1 *izond* erronkez betea.

Dena zekien, denean zen onena, denari buruz zuen arrazoia... eta ingurukoak minduz hazi egiten zen harroputz fanfarroi **erronkatsu** hura. J.M. Olaizola "Txiliku"

Geunden tenore **erronkatsuan**, ez genion inork kontrakorik egingo. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Zu, gainera -esan du **erronkatsu** -, grinaz maitatu zintudan. Monika Etxebarria

Andreasek buruari eragin zion, egoera haren gehiegikeria indartzeko, baina deus esan ordez, jiratu eta, lemari eutsirik, aurrera begiratu zuen harro eta **erronkatsu**. Anjel Lertxundi

---

erronkazale **1** *izond* erronka egitea atsegin duena.

Kerryren alderdiko Howard Dean **erronkazaleak** dirua pilatu zuen horretarako Internet baliatuta, eta diru asko bildu zuen bitarteko legalak eta errazak erabilita. Berria - Mundua

Konformagaitza da Saiz, **erronkazalea**, hobetzeko helburuari mugarik jartzen ez diona. Berria - Kirola

Aurreko liburuak honaino irakurri dituenak, ergel hutsa ez bada edota **erronkazale** amorratua, lotsagabea, ezingo du zalantzan jarri erromatarrak deabru likits eta gaiztoen zerbitzura bizi izan zirena. Imanol Unzurrunzaga

Konformagaitza da Saiz, **erronkazalea**, hobetzeko helburuari mugarik jartzen ez diona. Berria - Kirola

2 (adizlagun gisa)

-Halaxe da -esan dit, **erronkazale**. Monika Etxebarria

Hemen egon zinen azken aldian gaur baino **erronkazaleago** ikusi zintudan. Jon Alonso

---

erronkazaletasun *iz* erronkazalearen nolakotasuna.

Odolberotasuna eta **erronkazaletasuna**, mugapen fisiko eta sozialekiko etengabeko indar-probaketa. Xabier Olarra

---

erropa ik **arropa**.

---

errore *(ETCn **81** agerraldi)* **1** *iz* hutsegitea, errakuntza; egiarekin edo errealitatearekin bat ez datorren ideia.

Nik eskatuta atzeratu genuen eztabaida -esan zuen Lizentziok-; zaila iruditzen baitzitzaidan **errorea** definitzea. Imanol Unzurrunzaga

Iritsi nahi dugun lekura ez daroan bideari jarraitzea da **errorea**. Imanol Unzurrunzaga

Errorea, nire ustez, faltsua egiatzat onartzea da. Imanol Unzurrunzaga

Oker gaude, beraz, objektutzat irudiak hartzen ditugunean; **errorea** baita bata bestearen ordez onartzea. Imanol Unzurrunzaga

Terrorearen kontrako gerra **errore** bat da, errugabeak hiltzen direlako. Berria - Mundua

Nire **errorea** zera omen: gu, teknikariok, heriotza bazter utzirik saiatzen garela bizitzen. Joxe Austin Arrieta

Honetan datza bakoitzaren **errorea**, hots, zoriontasunera soilik iritsi nahi dutela aitortzen eta aldarrikatzen dutelarik, hara daroan bizibideari muzin egitean. Imanol Unzurrunzaga

Gauzak ordenarik gabe arautzen direla sinesten dutenen **errorea** nola sendatu. Imanol Unzurrunzaga

Oso zaila litzateke gizakiaren prozesu kognitibo batean **errorerik** ez agertzea. Askoren artean

Errore horiek ez baldin badira saihesten eta errefusatzen, epistemologiak ezin du bizirik iraun. Askoren artean

Adi-adi bizi beti, egiaren itxurako iritziak iruzur egin ez diezagun, hitzaldi dotoreak limurtu ez gaitzan, **errorearen** ilunpetan gure espiritua itsutu ez dadin, ona txartzat eta txarra ontzat har ez dezagun. Imanol Unzurrunzaga

Epistemologian **"errorearen** teoria" garatu da, besteak beste, sen onaren arabera ontzat ematen ditugun hainbat ideiaz ("lore hau gorria da", adibidez) fida ez gaitezen. Askoren artean

Batzuetan, sentipena eta iritzia, biak daude egian; hala gertatzen da on dagiena horrela dela sinetsi ez ezik, hartu ere plazerez hartzen denean; beste batzuetan biak daude **errorean**, hala nola, kalte egiten digunak on dagigula uste dugunean. Imanol Unzurrunzaga

Oraingoz, **errorean** jausi ez izana ez al dut aski? Imanol Unzurrunzaga

Liburu bat irakurtzeak guregan pizten dituen pentsamenduak eta sentipenak liburuaren egilearenekin egokitzen direnean eta gure bizitza hobetzera zuzentzen direnean, orduan lortzen da erabateko egia eta ez da zirrikiturik geratzen **errorearentzat**. Imanol Unzurrunzaga

Nire anaiak eskola liburuetatik hartutako erantzunak ematen baitzituen, beraz, **errorerik** gabeak. Pello Lizarralde

Zeren zalantzazko gauzei baiezkoa emango balie, nahiz eta deskuiduan egiak izan, ez litzateke **erroretik** libratuko. Imanol Unzurrunzaga

2 (izenondoekin)

Drogak debekatzea **errore** historikoa izan da; ez da alferrikakoa bakarrik izan, baita kaltegarria ere. Berria - Euskal Herria

Kondizio horietan, analisi historiko eta sozialez biolentziaren ezkomenientzia frogatzeko posibilitate razionala (**errore** posible gabeko egia), razionalki nuloa da. Joxe Azurmendi

Usteek errealitate independente bat deskriba dezaketela esatea, akatsa baino gehiago, **errore** izugarria da, eta arestian aipatu den teoriak bezala egia egokitasun gisa ulertzea ere, **errore** handia da. Askoren artean

Agustin gizon ikasi eta prestua haien engainuaz jabetu zen; bereziki haien **errore** teorikoez ohartu zen. Imanol Unzurrunzaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizakion begien bidez bi objekturen arteko antza iriztean darabilkigun **errore** arriskua ez omen litzateke inongo proba zientifikotan onartuko, ezta txarrenean ere. Ramon Saizarbitoria

Errore mota hain nabarmen hau ez du zure definizioak barnebiltzen. Imanol Unzurrunzaga

Demagun "urrezko mendia Kalifornian dago" formulazioa ez dagoela geografia eskuliburu batean, ezta bidaia baten kontaketan ere, baizik eta eleberri batean edo edozein motatako fikzio batean, egia edo **errore**-balioa aitortu ahal izango zaio. Xabier Arregi

4 errealitatearekin bat ez dator emaitza.

%0,5eko **errorea** gure aroa baino 2.000 urte lehenago egindako kalkulu batean! Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **da errorea** (4); **errore bat** (4); **eta errore** (5)

---

errosario ik **arrosario**.

---

errosel *iz* bisigua.

Santa Kataliñetan, txalupak **erroseletan**. Pello Zabala

Hemen Iparraldeko ukittua eta frantsesaren kutsua dauzkagu: *Rousseau* eta *rousselle*, bisiguari esaten han, eta hortik **erroselak** alegia, **erroseletan** txalupak dagoeneko, egun hauetan dagoeneko. Pello Zabala

---

erroska *iz* torloju eta kidekoetan, helize gisa kiribilkaturiko irtenunea. ik **hari 15**.

Izerdia kopetan, ia automatikoki egiten zituen gosariak, amaigabeko **erroskan** balebil bezala. Iñaki Zabaleta

---

erroskatu, erroska(tu), erroskatzen du *ad* torloju eta kidekoez mintzatuz, toki egokian sartu birak emanez.

Estilografikari tapa **erroskatu** eta orriak karpeta beltz batean gorde zituen, objektu preziatuenak lapurtzeko beldurrez gordetzen diren bezala ezkutatuz. Joxemari Urteaga

---

erroskila ik **erroskilla**.

---

erroskilla *(ETCn **32** agerraldi; orobat **erroskila** ETCn **134** agerraldi; Euskaltzaindiaren Hiztegian **erroskilla** agertzen da) iz* opil biribila, erdian zuloa duena.

Ardo txuria eta **erroskilak** ere bai. Pako Aristi

Atalburuan arnotarako ahuntz zahagiak dilindan dauzkan denda honetan erosi nituen piperrautsez bixitutako **erroskilak**. Koldo Izagirre

Bidean emakume bat ikusi zuen, asto gainean irriz, besaurrean **erroskilla** batzuk zeramatzala, pultsera luze bat iduri. Joan Mari Irigoien

Plazan zen Zeferino barkilleroa, makilgoxoak, sagar eta azukre karameluak, **erroskilak**, almendra lehorrak, gerezi-konpota, limoi ura eta koñaka agerian saltzen, jai handietan bezala. Felipe Juaristi

Kafea eta **erroskilla** batzuk eskatu zituzten orube huts bateko otordu-bagoi batean. Lopez de Arana

Congok, ahoa **erroskillez** beterik, baiezko keinu bat egin zuen. Lopez de Arana

Saltoki batzuetan baita gure **erroskilen** antzeko opiltxo batzuk ere, zuriak eta biribilak, Urkiolako San Antonioren erromerietan bezala. Anjel Lertxundi

Ez dizkizudala **erroskilen** zuloak **erroskilen** truke saldu. Joan Mari Irigoien

Anisezko **erroskila** zuriak han eta hemen salgai. Txillardegi

- **Erroskilla**-saltzaileari deitu eta erosiozu pastel zati bat. Anton Garikano

---

erroskillero *(corpusean **erroskilero** soilik) iz* erroskillak saltzen dituena.

Gero, Ernaniko gaiteroa, Pio Plazenekoa atabalero, Urnitako **erroskilerok**, Gazta ustela, Udare egosik, Amarkin Sagarrak. Patziku Perurena

---

errosko *iz* opil biribila, erdian zuloa duena. ik **erroskilla**.

Eta Gabonetako kontuekin jarraituz, horra hor Bilboko Plaza Barrian egindako ekitaldi solidarioa: pasa den hilaren 5ean inoiz ekoitzitako Munduko Errege-**Erroskorik** handiena banatu zuten hain justu. Berria - Euskal Herria

---

errosta *iz Gentiana* generoko belar landarea, hosto handiak eta eskuarki lore urdinak dituena *(Gentiana sp.)*. ik **gentziana**.

Sustrai asko ere baziren, usain onekoak gainera, erregaliza, hamamelisa, **errosta**, eta zintzurrean gozo sartzen ziren mahai-azkenekoen antzera, lerdea aterarazten zidaten hari azukredun luzeen bidez. Joxan Elosegi

Bere gorputzetik usain bizia botatzen duen edozer, panazea, asentsio higuingarria, **errosta** gogorra edo astuzker mingotsa, hauetariko edozein bi hatzen artean estutzen baduzu, ikusiko duzu nolako usaina ateratzen duen. Xabier Amuriza

Ozenki mintzatu zen, garraztasun ez itxuratiz, zeina bazirudien hedatzen zela **errosta**-edontzi batetik edo antzeko ezaugarriekiko beste edozein isurkinetatik, bultzada-fenomeno errepikatu batez kexatuz. Xabier Olarra

---

errota[1] *(ETCn **495** agerraldi)* **1** *iz* alea ehotzeko tresna, harri finko batez eta haizeak edo urak birarazten beste harri batez osatua; delako tresna dagoen etxea. ik **eihera**.

Luixa Daguerre etxekandereak itzulikarazi du bere **errota** erakutsiz **errota** hori nola erabili zen uraren indarrararekin eta zer gisaz irina heldu zen xurrutan beheiti. Herria

1561an, Castello aldean, uholde latzak **errotak** eta zubiak aurrean eraman zituenekoa. Pello Zabala

Jauregi-gibeleko paretari atxikirik kanal bat baitzegoen, **errotatik** xuxen zetorrena eta ura latseraino zeramana. Joan Mari Irigoien

Aurrean duen **errotaren** makinerian jarri ditu begiak. Pello Lizarralde

Egun batez bihia **errotan** pausa eta biharamunean bere alabak eginikako irina berriz etxetan partikatzen zuen. Herria

Errotako aterabideko kanalean. Joan Mari Irigoien

Begiak itxi bezain laster itzaliak dira murmurio guztiak eta **errotako** presako uraren soinua hasi da gailentzen. Pello Lizarralde

Ura, handik aitzina, harrizko kanal batek bideratzen zuen etxe aitzineko jardineko iturriraino lehenik, agerian, eta **errotako** urtegiraino gero, ezkutuan; **errotatik** ateratzean, berriz, urak bertze kanal batetik egiten zuen. Joan Mari Irigoien

Hartu **errota** eta egin irina. Elizen arteko biblia

Lanera itzultzeaz mintzo zen, eta hirurogei urterekin erretiroa hartzeko asmoaz, etorkizunaz, balizko **errotako** irinaz. Imanol Zurutuza

· Urak bere **errotara** eramaten ere onena delako, han ziren gehienak bereganatu zituelako, bere hitz jario elegantearekin, bere jakinduriarekin. Berria - Kirola

Nork bere **errotara** ura. Berria - Euskal Herria

Horregatik, ura bere **errotara** eraman nahi zuten horien salaketek ez naute gehiegi larritu. Esteban Antxustegi

Ura bere **errotara** beti apaizak. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hobbitonen burutu zen lehenengo lanetako bat, **errota** berria eraitsi aurretik ere, muinoen eta Zorrozabalenearen garbiketa izan zen. Agustin Otsoa

Herrian berriz, beste iturri bat: **errota** alimale bat behar da itzulikarazi eta ura nasaiki dario txorrotatik. Piarres Aintziart

Baina zehatzeko alea behar da, eta **errota** berrirako ez zegoen zaharrerako baino ale gehiago. Agustin Otsoa

Lur malkarrean behiti, Fontaña da Rosatik **errota** untzaduneraino, urak harrietan jauzika, ateari uxarka zezena. Patziku Perurena

Errota isil batera ailegatu dira bi gizonak, arropa ur zipriztinez beteta. Pello Lizarralde

Gelditu egin zen, ordea, eta harrizko **errotari**, etxe zuriei, ekarritako bideari, errekari, azken begiratu bat eman nahi izan zien. Bernardo Atxaga

Barañainen, bertako **errotari**, "Batan de Barañain" deitzen omen zioten 1837an. Patziku Perurena

Gelditu egin zen, ordea, eta harrizko **errotari**, etxe zuriei, ekarritako bideari, errekari, azken begiratu bat eman nahi izan zien. Bernardo Atxaga

Lanera itzultzeaz mintzo zen, eta hirurogei urterekin erretiroa hartzeko asmoaz, etorkizunaz, balizko **errotako** irinaz. Imanol Zurutuza

Gero, modurik naturalenean, balizko **errotatik** ziurtasunezko irinetara egin zuen jauzi. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez da sekula entzungo zitara-soinu edo kanturik, ez txirula edo turutarik zure baitan; ez da sekula artisaurik izango, ez eta **errota**-hotsik entzungo ere zure baitan. Elizen arteko biblia

Beso diruditenak **errota**-hegalak dira, haizeak bira-bultzatan errotarriari eragiten diotenak. Patxi Ezkiaga

Bere hizketaldi etenik gabea eskuak **errota**-hegalen moduan higituz laguntzen zuen. Anjel Lertxundi

Iraultzaren ideia ekarri zidan xuxurlo hark gorora, agian **errota** gurpil baten durundiarekin lotzen zelako nire fantasian. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oinak, berriz, ur **errotaren** gurpilak bezala. Felipe Juaristi

Hurrena, ur-**errota** ikustera joan ziren: beheko errotarria falta zitzaion, eta, hain zuzen ere, beheko errotarri horrek eutsi behar zion ardatzari. Jose Morales

5 irud/hed

Urtean 23.500 MWh sortzeko gaitasuna duten bost **errota** ipini ditu CESA korporazioak. Berria - Euskal Herria

Zurrumurruen **errotak** egia bazioen, bion aspaldiko lagun abokatu batekin ari zen, Jay Sussman-ekin. Oskar Arana

Denboraren **errota** ere hor dago, ordea, eta egunkari gehienek Efemerideak atalera pasea dute eguna. Iñigo Aranbarri

Egin izan ditut egunkaririk gabeko boladak ere, baina aski da semea kartzelan duen ama bat ikustea kalean, edo paskin bat, oroitzapenaren **errota** abiarazteko. Anjel Lertxundi

Bietako bat -ez dakigu nor- barandaren alde batera gorputza emana dago, besteak bultza egiten dio eta kanpai bueltarik eman gabe erortzen da uretara, gauaren erdian berun, eskuekin **errota** mugimendurik egin gabe, etsipen puntu batekin. Harkaitz Cano

Gero, zoru gainean hozten utzi ondoren, kafe-**errota** batean ehotzen genuen. Juan Garzia

Haien ondoan eserarazi ninduten, eta oilasko-**errotak** eta aingira janarazi zidaten. Juan Kruz Igerabide

Gure buruaren **errotak** banaka-banaka ehotzen ditu sentipen negatibook, tortura psikologiko saihetsezin bihurtu arte. Unai Iturriaga

6 ***haize errota*** haizeak ibilarazten duen errota.

Besoak **haize errrotaren** hegalak bezala, oinak, berriz, ur errotaren gurpilak bezala. Felipe Juaristi

Higitu zuen ezpata baterat eta bertzerat **haize-errrotaren** hegala baino arinago. Ekaitzek **haize errrotaren** beso bat eraman zuten. Joan Mari Irigoien

Inozokeria galanta litzateke **haize errroten** kontra borrokan egitea... Karlos Zabala

Haize errrotentzar osagai elektronikoak egiten ditu. Berria - Ekonomia

Gizakiaren ongizateari eta Euskal Herriaren aberastasunari mesede egiten dioten **haize-errrota** politak. Juan Luis Zabala

Haize errrota xuriek bere hegalen elegantziaz zerua zirikatzen bezala dute. Piarres Aintziart

Haize-errrotentzako palak garraiatzen zituen kamioi bat. Berria - Euskal Herria

Haize errroten parkeak. Berria - Euskal Herria

Haize errota xuriek bere hegalen elegantziaz zerua zirikatzen bezala dute. Piarres Aintziart

Gamesak 86 **haize errota** egingo ditu Asturiaserako. Berria - Ekonomia

Besoak **haize errotaren** hegalak bezala. Felipe Juaristi

Nafarroako Gobernuaren legediak **haize erroten** parkeak egiteko aukera ixten diela enpresa pribatuei. Munduko hirugarren **haize errrotagilea**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere errota (3); **bere errotara** (10); **bere errotara eramaten** (4); **edo erroten** (3); **edo erroten eguna** (3); **eihera edo erroten** (3); **errota bat** (7); **errota batean** (3); **errota berri** (3); **errota berria** (3); **errota bezala** (3); **errota da** (3); **errota egingo** (3); **errota egingo ditu** (3); **errota eta** (8); **errota hori** (3); **errota horren** (4); **errota joko** (3); **errota pare** (3); **errota parke** (5); **errota ren** (3); **errota zahar** (3); **errota zaharra** (6); **errota zain** (3); **errotak bere** (3); **errotak eta** (5); **errotak itzulia** (4); **errotak itzulia egin** (3); **errotara eramaten** (4); **errotaren jokoa** (5); **erroten eguna** (7); **erroten hegalak** (4); **erroten hegalak egiten** (3); **eta errota** (9); **eta errotak** (3); **eta errotako** (5); **gero errota** (3); **haize errota** (35); **haize errota egingo** (3); **haize errota parke** (5); **haize errotak** (19); **haize errotaren** (5); **haize erroten** (12); **haize erroten hegalak** (4); **kultur errota** (9); **larruntza errota** (3); **plazako errotan** (3); **ura bere errotara** (4)

---

errota[2] *iz ipar* gurpila.

Gatzez betea zen kutxan gorderik zeuzkan bi armak hartu, bere negozioko atea bizpahiru zarrapoz hetsi, eta bideari lotu zen, orgaren **errotek** utzi hatzei jarraikiz. Elena Touyarou

Beribila lurpeko aparkalekuan utzi dut, hiri handietan bizpahiru egunen buruko norbaitek karrikan begiztaturik, bisitatuko baitu eta berdin **errotarik** gabe gelditukо baitzait.

Batzuetan jauziak oraino handiagoak ziren, kamioiak **errotak** zilo batean sartzen zituelarik. Piarres Aintziart

Auto **errota** zilatzen eta murru tindatzen: "Turistak Kanpora", "Euskal Herria Euskaldunentzat". Itxaro Borda

---

errotadun *izond/izlag ipar* gurpilduna.

Hiru aulki... eta burdinazko ohe **errotadun** baten gainean iruditu zitzaidan norbait bazegoela. Daniel Landart

Alimaleko liburu meta batek bezero eskasetarik gerizatzen duela, kadira **errotadunean** jarria den saltzaile herbala jotzen ari da. Aurelia Arkotxa

Baina molderik hunkigarriena, aldi batez begien aitzinean ukan genuena, **errotadun** bizkar-alki bat, herbail edo ezindu gazte bat gainean... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Xirrindula, skate, roller eta bertze **errotadun** tresna batzuen erakusketak izan dira. Herria

---

errotagile 1 *iz* gurpilgilea.

Aiherrako **errotagile** batek gerla ondoan eginak. Herria

2 ik **haize 6**.

---

errotari *iz* errota baten ardura duena, errotan lan eginik bizibidea ateratzen duena. ik**errotazain**.

Azkenean errota batera iritsiko dira, baina Don Kijotek gerlaritzat hartuko ditu irinez zikindutako **errotariak**. Patxi Ezkiaga

Legamiaren kalitatea adulteratzen duen **errotari** baten diru-gosea. Anjel Lertxundi

Luisa, emaztea, bere lurretan gorderik zegoen, maizter zuen **errotari** baten etxe txiki politean, ibai garbi baten ondoan. Felipe Juaristi

Errotako bihurgunetik irten eta **errotariak** hartutako bidean zehar egin du, besoak eta eskuak apur bat aurreratuak, begiak, tarteka, lurrera eginik. Pello Lizarralde

Jan Janssen, ordea, ikazkinarekin beltz eta **errotariarekin** zuri izan ohi diren horietako pertsona zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Solasean aritzen zen administratzailearekin, mujikekin eta **errotariekin**, eta galdetzen zien zer eta nola ereiten zuten, nolako uzta espero zuten, nola lantzen zuten lurra,

zenbatean saltzen zuten garia. Jose Morales

Errotariaren alaba gaixo zegoen; sabela handituta zuen, eta sabeleko handitu hori gernu-debeku batez okerragotu zen. Josu Zabaleta

Zer eman liezaioke **errotari** apal batek kardinal jaun santu bati? Anjel Lertxundi

Ni, izatez, Zaldibiako semea naiz, baina Manterolan bizi naiz, **errotari**. Anjel Lertxundi

Zalantza bakarra nuen: gure artean zeuden bi nesketatik nor -**errotari**-jantzian zegoena ala gorteko dama-, hautatua zuen kardinalak gau hartarako ohekide. Anjel Lertxundi

---

errotarri *(orobat **errota-harri** g.er.)* **1** *iz* errotako harri biribila, gurpilaren antzekoa, alea ehotzeko erabitzen dena.

Han geratzen zen ikusten nola urak, lasterka bizian eta zarata sorgarria ateraz, **errotarriei** eragiten zien. Jose Morales

Han ageri diren haiek ez dira gero erraldoiak, haize-errotak baizik; eta beso diruditenak errota-hegalak dira, haizeak bira-bultzatan **errotarriari** eragiten diotenak. Patxi Ezkiaga

Ez duzue bahituran hartuko, ez errota, ez **errotarria**, bahituran bizia bera hartzea bailitzateke hori. Elizen arteko biblia

Gurpil astuna zen benetan, **errotarri** bat. Bernardo Atxaga

Niregan sinesten duten txiki hauetakoren bat galbidean jartzen duenak, hobe luke **errotarri** bat lepotik erantsi eta itsas hondora amilduko balute. Elizen arteko biblia

Orrondok Valentinaren esaldi famatua errepikatu zuen: alegia, berrogeita hamar urtera iritsia zelarik, nahiago zuela **errotarri** bat lepoan jarri eta itsasoan hondatzea, gizon batekin kateatzea baino. Pedro Alberdi

Orduan, aingeru ahaltsu batek harri bat, **errotarri** handi baten antzekoa, jaso eta itsasora jaurtiki zuen, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

Nire hezurrak Herio Leizearen ertzean zabaldurik daude, **errotarri** hautsia lurrean bezala. Elizen arteko biblia

Ur-errota ikustera joan ziren: beheko **errotarria** falta zitzaion, eta, hain zuzen ere, beheko **errotarri** horrek eutsi behar zion ardatzari, eta goiko **errotarriak** ardatz horren inguruan jiratu behar zuen. Jose Morales

Belarriak itxiko zaizkik, ezin izango duk aditu **errotarri**-hotsik, ez eta entzun ere txorien kanturik. Elizen arteko biblia

Martirizatzeko erantsi zizkioten **errotarriak** apurtu zituelako. Pello Zabala

Burua kardabaz eta kezkaz beterik zeukan eta pentsamendu bat zebilkion **errotarria** bezala "ez nuen beste erremediorik etortzea baizik". Iñaki Zabaleta

2 irud/hed

Buruko **errotarria** atzera eta aurrera dabilkio Agirreri, eta horrek egunkariak ganoraz irakurtzea eragozten dio. Edorta Jimenez

Denboraren **errotarriak** ezin zuen atxikimendu hura desegin. Bernardo Atxaga

Halako plan eta burutazioak egiten ditugu patioan hara eta hona gabiltzan bitartean, denborak, denboraren **errotarriak** bere alea xehatzen duen bitartean. Jokin Urain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **errotarri bat** (10); **errotarri bat lepotik** (4); **hobe luke errotarri** (3)

---

errotatiba *iz* inprimatzeko makina, errotazio higidura duten zilindroek osatua funtsean.

Gaur egun, *El Universal*ek daukan **errotatiba** Latinamerika guztiko handiena omen da. Pako Aristi

Jakina eta publikoa zela *Egunkaria Egin*-en **errotatiban** inprimatzen zela. Berria - Euskal Herria

Egunkarietako **errotatiba** zaharrak galerada inprimatu berria bertzeekin pilatzerakoan gisako asotsa ateratzen zuen, zapla!, ukaldi bakoitzean. Aingeru Epaltza

Errotatibatik atera berri diren egunkariz beteta daroala furgoneta. Urtzi Urrutikoetxea

---

errotatxo *iz adkor* errota txikia.

Bitartean, agurea berbetan hasi zait, hitzak alerik ale xehakatuz, kafe **errotatxo** baten erara. Javi Cillero

---

errotaula *iz* biribilgunea.

Ideian lukete bastizaren kaskoan **errotaula** ibilgune baten idekitzea. Herria

---

errotazain *iz* errotan lan egiten duen pertsona.

Errotazaina bezain zuri, baina umorez beltz, agertu zitzaion aldareko Kristori. Koldo Biguri

Errotazainak ere ez zien laborerik ez eraman ez ekarrarazi behar aziendei. Pello Zabala

Haren gainean **errotazain** herren bat omen zegoen, agure gaizto bat, Jainkoak zuzentasun osoz deabruaren eskuetara bidali zuena. Koldo Biguri

Lehengo **errotazainak** denak joanak izanez bere iloba Bruno lotu zaio lan horri. Herria

---

errotazio **1** *iz* gorputzez mintzatuz, hura bere ardatzaren inguruan higitzea. ik**biraketa**.

Nire gorputz osoa birarazi nuen berriro, planetaren **errotazioari** jarraiki. Joxan Elosegi

Saturnoren **errotazioa** moteldu egin da azken 23 urteotan. Berria - Gaiak

Lurraren **errotazioa** azkartu dela diote zientzialariek. Berria - Harian

Gailu mekaniko batzuk gehituta -birabarkia edo bolantea, esate baterako- **errotazio** bihurtzen da atzera-aurrerako mugimendua. Irene Aldasoro

Zirkulu bat ez da absurdoa, oso ongi azaltzen du zuzenki baten tarte batek bere muturretako baten inguruan eginiko **errotazioaren** bidez. Monika Etxebarria

Erreten horietan jarriko bagenitu inurriak bakoitza bere bidea egiten, eta aldi berean gurpila birarazi balitz kontrako zentzuan, behartuta egongo lirateke gurpilaren **errotazioaren** kontra beste aldeko bidea egitera. Santiago Iruretagoiena

Uhin horien frekuentzia aldatu egiten da planetaren latitudearen eta **errotazio** higiduraren arabera. Berria - Gaiak

Errotazio-aukerarik ezean, atzera-aurrerako mugimendua erabiltzen du giza gorputzak garraiorako eta gainerako jarduera fisiko guztietarako. Irene Aldasoro

Uhin horien frekuentzia aldatu egiten da planetaren latitudearen eta **errotazio** higiduraren arabera. Berria - Gaiak

Oraingo barne-errekuntzako motorra, automobile-tan erabiltzen dena, atzera-aurrerako motor gisa abiatzen da, baina **errotazio**-mugimendu bihurtzen du bere energia. Irene Aldasoro

Zirkulu-**errotazioen** eraginez mugitzen da. Santiago Iruretagoiena

2 aldaketa edo txanda alternatiboa.

Lan kontratu normalak, trebakuntza bereziak eta lanpostuen **errotazioa** » eskatu zituzten atzo bildutakoek. Berria - Euskal Herria

Gu beti **errotazioak** egiten aritzen gara, adibidez, aurreko larunbatean aritu ziren hamairu arraunlarietatik bederatzik egin zuten arraunean igandean. Berria - Kirola

Itsas bideen historiak, gariaren edo urre-meatzeen historiak, lehorreko eta ureztatutako laborantzaren historia, laboreen **errotazioaren** historia, gizateriak gosetearen eta

ugaritasunaren artean lortu duen orekaren historia. Xabier Arregi

Beti **errotazioan** lan eginez, hirukoteko kide bakoitzak saltoki batzuk bisitatu zituen, kontrol neurriak aztertzearren. Jon Arretxe

Enpresa multinazionalek kontrolatzen zuten osorik kapitala, zuzendaritza-eginkizunetan tokiko jenderik ez zen izaten, lan-eskua sarritan oso gaztea izaten zen eta **errotazioa** handia zen, eta langile asko, gainera, emakumezkoak izaten ziren, eta soldata eskasak ordaintzen zitzaizkien. Koro Navarro

Kimikako laugarren ikasturteko programaren barnean bazen ikastaro labur bat fisikako ariketak egiten zirenekoa: likintasun, azaleko tentsio, **errotazio**-ahalmen eta halakoen neurketa sinpleak. Juan Garzia

---

errotazismo *iz* kontsonante bat, eskuarki [s] edo [l], [r] bihurtzea.

"*s*, latinez, *r* bilakatu da" esango bagenu, **errotazismoa** hizkuntzari berezkoa zaiola pentsa genezake. Isabel Arrigain

Hala, **errotazismoa** ulertarazteko (cf. lat **genesis -> generis*), ezin esan daiteke *s*-a, bokal artean, *r* bilakatu dela, zeren *s*-a, laringeko hotsik ez duenez, ezin bilaka baitaiteke *r* hasiera-hasieratik. Isabel Arrigain

Latinez, **errotazismoa** dela medio, *gerō* eta *gestus, oneris* eta *onus, maeror* eta *maestus* eta abar azaldu ohi ziren. Isabel Arrigain

---

errotu *(ETCn **413** agerraldi)*, erro(tu), errotzen **1** da/du *ad* erroak bota; sakon finkatu. ik **sustraitu**.

Landare arraro guztien artean arraroenetakoa zuhaitzetan **errotzen** den mihura da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zeren Burgosko katedralak, zerurat beha paratu aitzin, lur sendo eta egonkor bat baitzuen funts eta azpi, non **errotzen** baitzituen bere oinak eta zimenduak. Joan Mari Irigoien

Plazaren erdigune geometrikoa markatzen zuen lauza altxatu eta zuloa agertuko zen, imajinatu zuen, eta hantxe sartuko zuten enborra, hantxe **errotuko** zuten, zezenaren tirakadei mugitu gabe eusteko. Iñaki Iñurrieta

2 irud/hed

Euskal herritarrak gara gu, hemengoak, hirurehun mende daramatzagunak bizitoki honetantxe; berton dauzkagu sustraiak **erroturik**. Edorta Agirre

Bidaia gehiagorik ez, aurkitua nuen ni **errotzeko** lurra. Fernando Rey

Egun batez, zorigaitza barnean **errotu** balitzaio bezala, ohetik ez jaikitzea erabaki zuen. Elena Touyarou

Metafora horiek izugarri laguntzen dute mito eta elezaharrak **errotzen**. Iñaki Heras

Filologo sendoa, hizkuntzaren historian, eta hizkuntza klasikoetan, batez ere latinean, **errotzen** zuen bere jakituria. Berria - Kultura

Erran diezazuket ezen gertaki bakoitzari usain bat dariola, aroma bat, gure baitan **errotzen** den halako sentsazio berezi bat. Joan Mari Irigoien

Egia da era berean, ideiok hobeto **errotzen** direla leku batzuetan besteetan baino. Berria - Euskal Herria

Eskuineko politikari populistaren mezua **errotu** da kultur aniztasunaren eredu izan den gizartean. Berria - Mundua

Zeren eritasunaren eta gaitzaren itsusia ez baita nehoiz gure baitan sortzen eta **errotzen** baina etsaiarenean. Joan Mari Irigoien

Iraken demokrazia **errotzen** ari da eta terroristek ezin dute jada ezer egin irakiarrek askatasunean bizitzeko duten eskubidea zapuzteko. Berria - Harian

Diskriminazioak gizartean indarkeria **errotzeko** ere balio duela ohartarazi du. Berria - Gaiak

Bikilarena iraultza atletikoa da, lasterrak ez dio lizunari astirik uzten **erro** dadin. Markos Zapiain

Errotzen ari den kalitate marka. Berria - Ekonomia

Atseginaren landarea sumatu nuela ezinegonaren lurretan **errotzen**, **errotzen** eta hazten, harik eta atsegina ezinegonari gailendu zitzaion arte. Joan Mari Irigoien

Ume-umetakoa bainuen amets hura, amonak bihotzean **errotu** zidana. Joan Mari Irigoien

Begiak hersten nituen, eta puntu bero eta heze hura **errotzen** zitzaidan bekokiaren erdian, eta hatsarrean puntu bat bertzerik ez zena handituz eta handituz joaiten zitzaidan, harik eta buru osoa hartzen zidan arte, gorputz osoa, mundu osoa... Joan Mari Irigoien

Ohitura ezin txarrago hau alde guztietan **errotu** da kristau deitzen direnen artean. Askoren artean

Bihurgune baten ur geldian **errotua** dagoen ihi flokari so egon naiz aski luzaz. Piarres Aintziart

Munduko atseginak gurutze ziren harentzat, Kristoren gurutzea bihotzean **errotua** zeramalako. Askoren artean

Munduaren iskanbilatik bakartua egon arren, kalezuloak bizi burrunbatsu berezkoa du, munduaren sakonenean estuki **errotua**, iraganaren sekretu zenbaiti atxikia. Patxi Zubizarreta

Badirudi eskubide sozialak oso **errotuta** daudela jendearen kontzientzian. Berria - Harian

Sakon **errotutako** esperantza bat berpiztu zuen. Berria - Mundua

Hizkuntzaren erabileran hain **errotuta** dauden hitz joko hauek ez ditugu aintzat hartuko. Iñaki Arranz

Gauzak ondo lotuta uztea gustatzen zaio, zaharra eta berria ondo uztartzea, lotzea, eta **errotutako** sustraien gainean eraikitzea. Ana Urkiza

Navali esker, betidanik Bilboko itsasadarraren **errotutako** proiektu industrialaren oinarriak indartu ahal izango ditugu. Berria - Harian

Lehen urteak ez ziren errazak izan, hango gizartean **erroturiko** arrazismoaren oldarkeria zela medio. Berria - Kultura

Idazle anglosaxoniarretan oso **errotua** dago oroitzapen liburuak idazteko ohitura. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain dira ugariak, sakonak eta ondo **errotuak** gure beldurrak! Pako Aristi

Iparraldean orduko hedatuta eta **errotuta** zeuden aldakuntzak Hegoaldera ere iristen hasi ziren pixkanaka. Koldo Zuazo

Kanta hau ere, berez, aurrekoen gisan, euskal usarioan **errotutako** formulaz osatua dago. Patziku Perurena

3 (era burutua izenondo gisa)

Gure usario **errotua** eta unibertsala, Orantzaro Gaua edo Eguna baita. Patziku Perurena

Konbentzio sozial **errotu** bat. Anjel Lertxundi

Gizon-emakumeengan "fede sakon eta **errotua"** izatearen ondoriozko baikortasuna. Fernando Rey

Ez haren ateraldi zorrotzik, ez haren txantxa ausartik, zenbatenaz aita jesuita jauregian sendoago eta **errotuago**, hainbatenaz gutiago. Joan Mari Irigoien

Usariorik **errotuenak** ere, izaten ditu bere salbuespenak, jakina. Patziku Perurena

Gizadiaren alde eta aurreiritzi **errotuenen** aurka egiten ausartu den hiritar jatorrari. Juan Martin Elexpuru

Norbera bere bulkada **errotuenen** erantzule izatea da gakoa. Berria - Harian

Txikitatik eduki dut letra inprimaturako joera oso **errotua**. Jon Alonso

Badakit ziurtasun osoz Rulforen mundua, bere lurreko errealitate historikoan hain sakon **errotua**, urrun heltzen dela. Juan Garzia

4 *errotzenago* aregago errotzen.

Orain dela gutxi arte horrela izan da araua, eta ergelkeria izan da emakumeen aldetik gauzak horrela jarraitzen uztea, zeren, zenbat eta mende gehiagoz luzatu arau hori, orduan eta **errotzenago** baita. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baitan errotu (3); **bat errotu** (4); **bat errotu zitzaidan** (3); **daude errotuta** (3); **erabat errotuta** (4); **erabat errotuta dago** (3); **errotu da** (10); **errotu egin** (3); **errotu eta** (10); **errotu zen** (6); **errotu ziren** (3); **errotu zitzaidan** (6); **errotua da** (5); **errotua dago** (4); **errotua dagoela** (4); **errotua dela** (4); **errotua eta** (3); **erroturik dago** (4); **erroturik dagoen** (6); **erroturik dauden** (4); **errotuta dago** (11); **errotuta dagoen** (10); **errotuta daude** (5); **errotuta dauden** (8); **errotuta zegoen** (3); **errotuta zeuden** (3); **errotzen ari** (5); **errotzen den** (5); **eta errotzen** (5); **euskal herrian errotuta** (3); **gizartean errotuta** (3); **gizartean errotzeko** (3); **guztiz errotuta** (3); **hain errotua** (3); **hain errotuta** (7); **herrian errotuta** (3); **herrian errotuta dauden** (3); **herrian errotzeko** (3); **hura errotu** (3); **ondo errotuta** (4); **oso errotua** (7); **oso erroturik** (4); **oso errotuta** (12); **oso errotuta dago** (4); **sakon errotu** (3); **sakon errotua** (4); **sakon erroturik** (3); **sakon errotutako** (3); **sentimendu bat errotu** (3)

errotze *iz* erroak botatzea.

Ez ditu argi errotzen ez ezagumena eta ez askatasuna -bere arrazoimen garbiaren alderdi biak- nahiz eta **errotze** horren amets izan: [...]. Jenaro Garate

Elosuaren arabera, Uriaren **errotze** sozial, pertsonal eta profesionalak ere bermatzen dute ez duela ihes egingo. Berria - Euskal Herria

HZk emaitza «onak» lortu izanak «erakusten du Europako Batasuna hedatzeko erronkaren aitzinean Zazpiak Bat-etik erantzuteko beharraren **errotze** maila handia badela oinarri abertzalean», esan zuen Batasunak. Berria - Euskal Herria

Arautegi berriaren arabera, urtebeteko lanak legeztatzeko aukera emango lioke etorkinari, «lan **errotzea**» delakoaren bitartez. Berria - Euskal Herria

Batez ere, **errotze** orokorrari, lan **errotzeari**, gizatasun arrazoiei eta familiak berriro elkartzeko prozedurari dagozkien agiriak emateari buruzko eskuduntzak. Berria - Euskal Herria

---

erroztapen *iz* errotzea.

Erroztapenak, izan ere, ohituren eta tradizioen zama zanpatzailea esan nahi du. Joxe Azurmendi

Hemen egiterik ez dagoen xehetasunarekin mereziko luke gaiak arakatzea, **"erroztapena"** Finkielkrautek eta Simone Weilek zein begikera diferentearekin tratatzen duten. Joxe Azurmendi

---

erru 1 *iz* hutsegitea, eskuarki hutsegitearen erantzukizuna. ik **hoben; kulpa**.

Gaitza zabaltzearen **errua** ez zen medikuena izan, garbitasun ezarena baizik. Berria - Gaiak

LABek bidalitako prentsa oharraren arabera, metalgintzan akordiorik ez lortzea, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko patronalen **errua** da. Berria - Ekonomia

Dorothyrena zen **erru** guztia. Fernando Rey

Erru guztia ez da, ordea, publizitatearena. Joxerra Garzia

Zorionekoa ni, Agripa erregea, juduek leporatzen dizkidaten **erru** guztiez gaur neure burua zure aurrean zuritzeko aukera dudalako. Elizen arteko biblia

Nolako eta zenbateko zigorra zor zaion **erru** bakoitzari Jaungoikoaren epaia da, ez gizakiona. Imanol Unzurrunzaga

Aurrerantzean **erru** horiek ez errepikatzen saiatuko omen da. Berria - Kirola

Anaia guztiei, hemen nahiz urruti direnei, beren hutsegite eta **erru** guztiak barkatzen dizkiet. Xabier Mendiguren Elizegi

Sorbaldak makurtzen zituen aldez aurretik, garbitu beharreko **erru** baten lotsaz. Karlos Zabala

Berdeletan hasi berri den flotari bota diote eskasiaren **errua**. Berria - Ekonomia

Ironia da Washingtonek ez duela inori **errua** botatzerik bere buruari baizik. Berria - Ekonomia

Deforestazioaren **errua** nekazariei botatzen diegu eta haien esku uzten ditugu baso-berritze lanak. Berria - Gaiak

Pentsa daiteke gizon hori bizirik dagoela, eta ez duela bere burua ezagutarazi nahi, hilketaren **errua** egotziko ote dioten beldurrez. Koro Navarro

Zuzen eta bidezko izan nahi baduzu, ez didazu niri egotziko **errurik**. Jon Muñoz

Errua Zapaterori leporatu zion: «Zital jokatzen ari da». Berria - Ekonomia

Errurik ez dutenek izango dituzte kalte handienak. Berria - Euskal Herria

Baina, zer **erru** zuten Sofik eta Musa Beyk? Fernando Rey

Zer **erru** ote du, ba, berak, Euskal Herria deitzen diogun Europako bazter galdu honetan 2003 urtea oraindik 1984 baldin bada? Joxerra Garzia

Zeuek zarete gerta dakizuekeenaren erantzule bakar; nik ez dut **errurik**. Elizen arteko biblia

Ze **erru** ote nuen nik, bada, dena hala gertatu izanaz? Joxe Austin Arrieta

Eta baita nik nahaste hartan guztian zer **erru** nuen ere. Xabier Olarra

Joselu artega zegoen, eta berak bazuen horretan **errurik**. Josu Landa

Zer **erru** zeukan berak? Irene Aldasoro

Beren **erruaren** ordainetan ahari bana eskaini zuten. Elizen arteko biblia

Bizirik gelditzen direnek ihes egingo dute, mendietara joango dira, haranetako usoak bezala, denak intzirika, nor bere **erruarengatik**. Elizen arteko biblia

Eskualde horietan, ordea, gutxiago dira, urtero neska mordoa hiltzen baitute, neska izatea beste **errurik** gabe. Gotzon Garate

Nik harro behatzen nion, deusen **errurik** ez daukanaren gardentasunaz. Koldo Izagirre

Etxe osoa erreta egongo duk hire **erruz**, eta zigarro-muturra bota duenaren **erruz**, baita asmo txarrez bota badu ere. Koldo Biguri

Lesio larri baten **erruz** Ingalaterrara joateko aukerarik gabe gelditu baitzen kasik, baina itxaroten jakin zuten han, eta ez dira damutu Gure honetan hain sarri aldatu ohi delako, inor ausartzen bazen igandean belarretan, hurrengo euri-erasana bere **erruzkotzat** joko zuen. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Bereiz daitezke iruzurra eta **erru** larria, **erru** larria eta txikia, eta hau eta errugabetasun osoa, eta lehenengoari faltsutze delituen zigorrak ezar dakizkioke, bigarrenari txikiagoak, baina askatasuna kenduz, eta azkenari bergizarteratzeko bitartekoak aukeratzeko eskubidea utzi, hirugarrenari hori egiteko libertatea kendu, eta hartzekodunei eman. Gaur egun, ordea, kuttun edo fetitxe halako bihurtu dugu liburua, eta hedabideek **erru** handia dute horretan. Juan Martin Elexpuru

Batzuetan errudun sentitzen zen arren, **erru** arin eta lauso batek, ekaitz bat-batekoaren modura, buruaren gaina hartzen bazion ere, berehala uxatzen zituen goibel beltz horiek, eta orekatuta bizi zela iruditzen zitzaion. Berria - Kultura

Haren **erru** ezkutua ez badator agerira behingo solasean, parte txarrekoa zuan ikusi dugun mamua. Juan Garzia

Gizakumeak normalean ez ditu oinak erakusten, **erru** estetiko eta etikoa balira bezala ezkutatzen ditu. Patziku Perurena

Hasierako inpresioa sabeleko eta belaunetako ondoezarena izan zuen; gero **erru** itsuarena, irrealtasunarena, hotzarena, beldurrarena. Juan Garzia

Maiz gertatzen baitzaio etorkizunaz ere nahigabetzea eta beldurrak gaixotzea eta ardurak higatzea eta iraganeko **erru** gogoratuek hozka egitea. Xabier Amuriza

Nekez egotzi dakioke langabeziaren **erru** osoa, diskurtso bakarrak behin eta berriz egiten duen antzera, merkatuaren zurruntasunari. Iñaki Heras

Gertatutakoaren **erru** guztia ez zen berarena. Irene Aldasoro

Marcel Martinen **erru** bakarra saltxitxa saltzaile itxura zuen alsaziar arrunt harekin oheratzea izan omen zen. Ramon Saizarbitoria

Hobe hori balitz neure buruari egozten diodan **erru** bakarra!. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta sentipen handi-handi guztiek bezala, lotsa-punttu eta **erru**-sentipen kutsu bat ere bazuen. Xabier Olarra

Erru-sentimendu petral bat geratu zait, halere, eta hauxe aitortuz amaituko dut: irakurle peto gutxi daukagula kexatu ohi gara sarritan, liburugintzarekin aldez edo moldez loturik daudela txuri gaineko beltxa miatzen ibiltzen diren gehienak. Markos Zapiain

Erru-ustea kolektibizatzeak dakarren lasaituaz. Iñigo Aranbarri

Horrek, absurdua bazen ere, oroimin samur bat sentiarazi zidan, ez arrazoizgaineko **erru**-beldurrik gabea, emaztea eta seme-alabak abandonatuta etxetik alde egindako gizon bihozgabea banintz bezala. Juan Luis Zabala

Hasieran sekulako **erru**-zama sentitzen nuen bizkar gainean hori dela-eta. Arantxa Iturbe

Erru-ziztada batez, zera pentsatu nuen, dagoeneko ahanzten hasia nintzela aitaren aurpegiaz. Alberto Ladron Arana

Atsedenaldiaren ostean eta behin gol errenta galduta (17-11) Itxakoko nesken urduritasunak **erru** errenkada ekarri zuen. Berria - Kirola

Haren heriotzaz ez da haizatuko **erru**-marmarrrik, baizik are beraren amak du kargugabetuko egintza, eta halabehartzat jo. Juan Garzia

Eta, jakina, eskatu gabeko azalpena **erru** aitorpen garbia izan ohi da. Joxerra Garzia

Alferrik ari gara **erru** eza bilatu nahian; denok gara hemen hirugarren munduko miseriaren erantzule, baita gure arteko errugabeenak ere Nik ez dut Ada hil hori epaile bati zuzendu behar nion kontakizun **erru**-aringarria hasteko modu bat nuen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nik hil nuen Ada **erru**-aitorlea. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere erru (4); **da erru** (7); **da erru guztia** (3); **erru bakarra** (4); **erru eta** (5); **erru guztia** (39); **erru guztia ez** (3); **erru guztiak** (9); **erru guztiak barkatzen** (3); **erru handi** (3); **erru handia** (8); **erru horiek** (4); **erru osoa** (6); **erru ote** (3); **erru sentimendu** (6); **erru sentimendua** (5); **erru sentipen** (5); **eta erru** (13); **izanaren erru** (7); **zer erru** (4)

aitaren errua (4); **baina errua** (7); **baina errua ez** (3); **baten errua** (8); **beraren errua** (8); **bere errua** (64); **bere errua aitortu** (13); **bere errua eta** (4); **bere errua izan** (6); **beren errua** (8); **besteei errua** (3); **beti errua** (3); **bota die errua** (3); **da bere errua** (5); **da errua** (25); **da gure errua** (4); **da inoren errua** (3); **da nire errua** (15); **da zure errua** (7); **dauka errua** (5); **den errua** (4); **die errua** (6); **dik errua** (4); **dio errua** (11); **diot errua** (3); **diote errua** (7); **dizut errua** (4); **du errua** (10); **duk nire errua** (4); **dun nire errua** (9); **dut neure errua** (3); **dute heriotzaren errua** (5); **egotearen errua** (3); **egotzi diote errua** (3); **egotzi zien errua** (4); **egotzi zion errua** (5); **ere errua** (3); **errua aitortu** (20); **errua aitortu zuen** (10); **errua aitortzen** (3); **errua aitortzera** (4); **errua al** (9); **errua al da** (7); **errua balitz** (5); **errua balitz bezala** (5); **errua berari** (3); **errua bere** (10); **errua bere gain** (4); **errua berea** (7); **errua beste** (3); **errua besteei** (4); **errua beti** (3); **errua bota** (6); **errua botatzea** (6); **errua botatzen** (5); **errua da** (31); **errua dela** (12); **errua egotzi** (6); **errua egotziko** (4); **errua egotziz** (4); **errua ere** (10); **errua eta** (19); **errua ez** (30); **errua ez da** (13); **errua ez dela** (4); **errua ez zen** (4); **errua ezin** (4); **errua gurea** (6); **errua gurea da** (4); **errua hamidarena** (3); **errua hamidarena duk** (3); **errua izan** (62); **errua izan da** (14); **errua izan zela** (5); **errua izan zen** (13); **errua izanen** (3); **errua izango** (9); **errua nik** (3); **errua nirea** (11); **errua nirea da** (3); **errua niri** (3); **errua nori** (4); **errua ote** (3); **errua zela** (6); **errua zen** (6); **errua zurea** (5); **errua zurea da** (3); **eta bere errua** (6); **eta errua** (18); **eta nire errua** (5); **eta zure errua** (3); **ez dizut errua** (4); **gauza guztien errua** (3); **gertatuaren errua** (4); **gertatutakoaren errua** (6); **geure errua** (3); **gure errua** (12); **guztiaren errua** (12); **guztien errua** (7); **haien errua** (3); **haren errua** (10); **hark bere errua** (3); **heriotzaren errua** (9); **herriaren errua** (3); **hilketaren errua** (3); **hire errua** (5); **hondatu izanaren errua** (3); **honen errua** (9); **horren errua** (28); **inoren errua** (5); **inori errua** (3); **izan zuen errua** (5); **izanaren errua** (9); **izatearen errua** (3); **neure errua** (20); **neure errua izan** (7); **nire errua** (78); **nire errua al** (7); **nire errua da** (6); **nire errua izan** (11); **noren errua** (7); **noren errua da** (4); **noren errua izan** (3); **norena da errua** (3); **norena den errua** (4); **porrotaren errua** (7); **txarren errua** (4); **zaio errua** (4); **zen bere errua** (4); **zen errua** (7); **zeure errua** (8); **zeure errua izan** (3); **zien errua** (6); **zion errua** (11); **zuen bere errua** (8); **zuen errua** (10); **zure errua** (17); **zure errua da** (5); **zure errua izan** (3)

batere errurik (5); **bere erruagatik** (9); **bere erruak** (5); **bere erruarengatik** (8); **bere erruen** (3); **bere erruengatik** (4); **beren erruak** (4); **beren erruaren** (4); **beste errurik** (3); **da bere erruarengatik** (5); **du errurik** (4); **dute errurik** (4); **erruagatik zela** (3); **erruak eta** (5); **erruak ordaintzen** (3); **erruaren ondorenak** (3); **erruaren ondorenak jasan** (3); **erruen zorra** (3); **erruren bat** (3); **errurik bota** (7); **errurik botatzen** (5); **errurik egozten** (3); **errurik ez** (23); **errurik ez duela** (3); **errurik gabe** (12); **errurik gabeko** (4); **errurik sentitu** (3); **errurik sentitu gabe** (3); **eta erruak** (6); **eta errurik** (3); **ez du errurik** (4); **ez dute errurik** (4); **ezeren errurik** (15); **gure erruagatik** (3); **gure erruak** (4); **horren errurik** (4); **horretan errurik** (6); **inolako errurik** (8); **inongo errurik** (3); **inori errurik** (3); **nire erruagatik** (4); **nire erruak** (4); **zure erruagatik** (4)

alabatxoaren erruz (3); **baten erruz** (36); **batzuen erruz** (3); **beharreko zigorraren erruz** (3); **beraren erruz** (5); **bere erruz** (15); **beren erruz** (3); **erruz galdu** (8); **erruz geratu** (3); **erruz gertatu** (7); **erruz gertatu zen** (4); **erruz gertatzen** (7); **erruz handitu** (4); **erruz hartu** (3); **erruz hil** (4); **erruz hitz** (3); **erruz hurbildu** (3); **erruz idatzi** (4); **erruz isuri** (5); **erruz isuri zen** (4); **erruz izan** (12); **erruz izan da** (3); **erruz izango** (4); **erruz joan** (5); **erruz joan ziren** (4); **erruz pilatu** (4); **erruz sartzen** (4); **erruz ugaldu** (8); **erruz ugaldu ziren** (4); **erruz ugalduko** (6); **erruz ugaltzen** (3); **erruz zabaldu** (3); **erruz zebilen** (3); **eta erruz** (24); **euren erruz** (3); **euria erruz** (4); **euriaren erruz** (4); **ez bere erruz** (3); **geure erruz** (7); **gure erruz** (5); **haren erruz** (8); **herritarrak erruz** (3); **hiesaren erruz** (3); **horien erruz** (3); **horren erruz** (12); **jendea erruz** (17); **jendea erruz zebilen** (3); **lana erruz** (9); **lana erruz egin** (5); **larri baten erruz** (3); **lesio baten erruz** (6); **lesioaren erruz** (3); **lesioen erruz** (3); **minaren erruz** (4); **neure erruz** (7); **nire erruz** (20); **odola erruz** (10); **odola erruz isuri** (5); **ppren erruz** (3); **sepik erruz** (3); **zigorraren erruz** (3); **zuen erruz** (8); **zure erruz** (12)

dira erruz (3); **dirua erruz** (6); **ere erruz** (13); **erruz agertzen** (3); **erruz aldatuko** (3); **erruz ari** (6); **erruz atera** (6); **erruz atera ziren** (4); **erruz aurkitzen** (3); **erruz aurkitzen ditugu** (3); **erruz bildu** (3); **erruz dago** (3); **erruz edan** (4); **erruz edaten** (3); **erruz egin** (7); **erruz egiten** (6); **erruz erabili** (6); **erruz erabiltzen** (12); **erruz eta** (10); **erruz etortzen** (3); **erruz galdu** (8); **erruz geratu** (3); **erruz gertatu** (7); **erruz gertatu zen** (4); **erruz gertatzen** (7); **erruz handitu** (4); **erruz hartu** (3); **erruz hil** (4); **erruz hitz** (3); **erruz hurbildu** (3); **erruz idatzi** (4); **erruz isuri** (5); **erruz isuri zen** (4); **erruz izan** (12); **erruz izan da** (3); **erruz izango** (4); **erruz joan** (5); **erruz joan ziren** (4); **erruz pilatu** (4); **erruz sartzen** (4); **erruz ugaldu** (8); **erruz ugaldu ziren** (4); **erruz ugalduko** (6); **erruz ugaltzen** (3); **erruz zabaldu** (3); **erruz zebilen** (3); **eta erruz** (24); **euren erruz** (3); **euria erruz** (4); **euriaren erruz** (4); **ez bere erruz** (3); **geure erruz** (7); **gure erruz** (5); **haren erruz** (8); **herritarrak erruz** (3); **hiesaren erruz** (3); **horien erruz** (3); **horren erruz** (12); **jendea erruz** (17); **jendea erruz zebilen** (3); **lana erruz** (9); **lana erruz egin** (5); **larri baten erruz** (3); **lesio baten erruz** (6); **lesioaren erruz** (3); **lesioen erruz** (3); **minaren erruz** (4); **neure erruz** (7); **nire erruz** (20); **odola erruz** (10); **odola erruz isuri** (5); **ppren erruz** (3); **sepik erruz** (3); **zigorraren erruz** (3); **zuen erruz** (8); **zure erruz** (12)

---

errubako *izond/iz* errugabea.

Nahikoa lan edukiko dut gure alabatxo **errubakoak** zaintzen inork haurdun utzi barik. Xabier Montoia

Jakin izan dut gizaki hauetatik bost hilak izan direla, beste hirurogeita hamarrek kondena gogorrak hartu dituztela, **errubako** deklaratu behar zirenak erruduntzat izan direla hartuak, eta gizaki hauek guztiak anarkistak zirela, edo halakotzat hartuak. Koldo Izagirre

Ba ote dago ba **errubakorik**, gizarte honetan? Koldo Izagirre

Errubakoen odola isurtzea ez zait iraultzaile iruditzen. Koldo Izagirre

---

errubeda ik **errobera**.

---

errubeola *iz* eritasun birikoa, elgorriaren antzekoa baina ez hain larria.

Difteria, tetanoa, kukurruku-eztula, poliomelitisa, elgorria, **errubeola**, parotiditisa eta, azkenik, B hepatitisa. Karlos Linazasoro

Ingelesez "Alemaniako elgorria" esaten zaio **errubeolari**. Antton Olano

Azkenean, Wendyk aurrera egin zuen, bere haginek hamabi libera eta sei txelineko gastua baino ez zuten sortu, eta elgorria izan zuen, baina **errubeolarik** ez. Julen Gabiria

Txorien iritziz, hori oso arrazoi pobrea zen, baina zaharrenek oso esker ona erakusten zioten, Peterrek txorikume mordotxoa zaindu zuelako **errubeolaren** garaian. Julen Gabiria

1960etan zabaldu zen **errubeola** izurri batean, jaio aurretik haren eraginpean egondako haurtxo askok garatu zuten autismoa. Xabier Olarra

---

errubera ik **errobera**.

---

erruberatxo ik **erroberatxo**.

---

erruberatzar ik **erroberatzar**.

---

errubi[1] *iz* harri bitxia, korindoiaren aldaera gorria.

Paradisuan bizi zinen, Jainkoaren baratzean, mota guztietako harribitxiz apaindua, kornalina, topazio eta beriloz, krisolito, onize eta jaspez, zafiro, **errubi** eta esmeraldaz apaindua. Elizen arteko biblia

Kaukasoko lepokoa atera zuen -dena urrea eta **errubiak**-, bere amonak oparitua. Fernando Rey

Aramgoek zure eskulan ugariak erosten zituzten eta trukean esmeraldak, purpurazko oihalak, bordatuak eta lihozko ehunak, koralak eta **errubiak** ematen zizkizuten. Elizen arteko biblia

Dorreak **errubiz** eta ateak esmeraldaz egingo dizkizut, harribitxiz harresi guztiak. Elizen arteko biblia

Perlaz eta **errubiez** dir-dir egiten zuten jauregiko ateek. Koro Navarro

Bizitzaren baitako betikotasuna **errubizko** uneok egituratzen dute. Markos Zapiain

Distira egiten duela (zelata egin zien leihoko argi isladen ondulazioei) jariakorra, iheskorra, espektrala den guztiaren aurrean, **errubiaren** antzera. Anton Garikano

Haren esku zuhurrean dirdir zegien bi **errubi** zurbil-nahasiz txertaturiko eraztun urre berdezko batek. Juan Garzia

Harry bere eskuineko iratxoari begira zegoen: ikatz goriak bezain handiak ziren **errubi**-pila ari zen pisatzen. Iñaki Mendiguren

Zerua purpuraz tindaturiko gris argia zen, baina **errubi**-gorriaren distirak ageri ziren mendebaldean. Iñaki Mendiguren

Errubi harria urrezko bitxian bezala da musika oturuntzan. Elizen arteko biblia

Urrezko ilinti-bizi dira hirurak, erabat, bera eta bere neskameak, eta bitxi-mordoak, eta diamanteak, eta **errubi**-bitxiak, eta hamar aldiz gain harturiko oihalak. Patxi Ezkiaga

Leihotik ikusten zen zerua **errubi**-kolorekoa zen; ilunabarra zirudien. Iñaki Mendiguren

Abelgorri **errubi**-gorrizta saldo bat sakabanatu egin zen, ikaratuta, gu albotik iragatean, eta buztanak tente-tente ospa egin zuten. Mirentxu Larrañaga

---

errubi[2] ik **errugbi**.

---

errubia 1 *izond/iz* emakumeez mintzatuz, ilehoria.

Tinbrea jo eta emakume **errubia** batek ireki du atea. Joseba Sarrionandia

Bilboko beraneante **errubia** polit eta tuntun haietako bat maite. Joseba Sarrionandia

Penthouse erdiko erretratu zabalduari begira, **errubiaren** bular oparoen gainean apur bat makurtuta. Joseba Sarrionandia

Erizaina, tinturazko **errubia**, botika kaxarekin ailegatu da, pazienteei pastillak bonboiak lez banatzen. Joseba Sarrionandia

Agian berriro topatuko nuke lehengo eguneko **errubia** sexy hura zumardiko kantoian, 26aren zain. Patxi Iturritegi

Errubia katxonda neuretzat. Jon Arretxe

2 irud/hed

Eztarria atzaparkatzen zuen, odolezko **errubiak** agertu arte, gauerdiko bere azalean distiratsu. Anton Garikano

---

errubidun *izond/izlag* errubiak dituena.

Laukiekiko gorbataren gainean orratz **errubidun** bat agerian zeukalarik, besaulki handi bat betetzen zuen. Lopez de Arana

---

errubilari ik **errugbilari**.

---

errubio *izond/iz* gizonez mintzatuz, ilehoria.

Emilio Mina Irasasi, futbolean hain ondo egiten zuen mutil argal, **errubio** eta isila, laugarrena errepikatzen ari zena, belaunburuak oilaurrez beterik zituena. Joseba Sarrionandia

-Eta ez al daukazu ipurdiko mina, Rory Mor? -iseka egin zion besteak, Cormac **errubioak**, barre zantzoa eginez. Joanes Urkixo

Batzuetan, txanden arabera eta, beste bizkartzain batzuk izaten baititu, Joseba, Pablo, eta **errubio** hura, izena ahaztu zaio jada. Iban Zaldua

---

errublo 1 *iz* Errusiako eta inguruko beste zenbait estatutako diru unitatea.

Errubloa zilarrezko txanpona da, 100 kopek balio duena, hau da, 3,92 libera 0,6 euro. Karlos Zabala

Abuztuaren erdialdean, NDFrekin itun bat izenpetu (kreditu berriak, 22.000 milioi dolarreko balioaz) eta hilabete pasatu baino lehen, **errubloaren** kontrako espekulazioa hasi zen, eta, hala, aste gutxiren buruan bere balioaren %75 galdu zuen diru horrek. Koro Navarro

Zakutxoetako batean **errubloak** bakarrik sartzen dituzte, beste batean berrogeita hamar kopekeko txanponak, eta hirugarren batean hogeita bost kopekekoak. Jose Morales

Milioiak irabazten dituzte lapurreta eginez, eta gero elizan **errublo** bat eman eta zuzena iruditzen zaie. Jose Morales

1838. urtean Ukrainako idazle eta artista talde batek 2.500 **errublo** ordaindu zuen Taras Shevtxenko morrontzatik askatzeko. Berria - Mundua

Horrelako ostatuetan, eguneko bi **errublo** ordaindurik, gela erosoa ematen diote bidaiariari. Jose Morales

"Ohi gaineko gastuengatik" hirurehun **errublo** eman zidaten eta, horrez gain, "zerbitzuko frack" bat esleitu. Matías Múgica

Saskia eramango zuela esan zidan, hirurehun **errublo** eman zizkidan eta agindu zidan ogia ekarriko zidala astean behin. Felipe Juaristi

Bostehun **errublo** balio du erroldan errejistraturiko arima bakoitzak. Jose Morales

Hemen dagoenetik hogeita hamasei **errublo** gastatu ditut aparteko gastuetan. Matías Múgica

Hildako bakoitzaren senideek 112.000 **errublo** (3.800 dolar) jasoko dituzte; gutxiago atentatua izan dela frogatzen bada. Berria - Mundua

Bere galtzetako poltsiko handietan zeuzkan **errubloei** diru hotsa eragiten zien, monje eskaleek katiluko txanponei bezala. Matías Múgica

-Hogeita hamar **errublo** bakoitzeko, eta zureak dira denak! Jose Morales

Gure Kopeikin kapitainaren kapital guztia bost **errubloko** hamar billete ziren. Jose Morales

-Hamar **errublo**-esan zuen, eta nik hamar **errubloko** urre moneda eman nion. Matías Múgica

Milaka **errubloko** kapitala bildua baitzuen haietako bakoitzak. Jose Morales

Hirurogeita hamabost **errubloan** salduko dizut arima bakoitza, baina, hori bai, diru-paperetan ordaindu behar didazu. Jose Morales

Salerosketen diru kopurua ez baita behin ere izaten ehun milioi **errublotik** beherakoa. Karlos Zabala

Hona iristean esan didate hiru milioi **errubloren** nekazariak erosi dituela beste probintzia batera eramateko. Jose Morales

Aldez aurretik oharrarazten diat ez diadala hamar mila **errubloren** aldera ere salduko. Jose Morales

Sudurrak milaka **errubloren** usaina aditzen zuen kalean. Jose Morales

Hamar mila **errubloan** erosi nian, eta lau mila bakarrik eskatuko dizkiat. Jose Morales

Bene-benetako Cliquot bat edaten zutela, zortzi **errubloan** botila. Karlos Zabala

-Hamabi **errubloan** pud bakoitza. Jose Morales

Prest nago hamabosna **errubloan** saltzeko! Jose Morales

Neska horrek bi mila **errubloko** ezkontsaria izango balu, mauka ederra lukek berarekin ezkontzea. Jose Morales

2 (izenlagunekin)

Errusiar **errublo** bat hemengo 30 **errublo** dira. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan)

Harry Blountek **errublo** pila bat laga zuen leihatilaren aurreko apalean. Karlos Zabala

Ondo da, **errublo** erdi gehiago emango dizut bakoitzeko. Jose Morales

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berrehun mila errublo (3); **berrogei errublo** (3); **berrogeita hamar errublo** (5); **bi errublo** (7); **bost errublo** (9); **bost errubloko** (3); **bostehun errublo** (3); **ehun errublo** (9); **ehun mila errublo** (5); **errublo baino** (3); **errublo balio** (3); **errublo bat** (6); **errublo batzuk** (3); **errublo eman** (9); **errublo emango** (3); **errublo eta** (7); **errublo eta erdi** (4); **errublo milaka batzuk** (3); **errublo ordaindu** (4); **errublo utzi** (3); **errubloko etekina** (4); **errubloko kapitala** (3); **hamabost errublo** (6); **hamar errublo** (10); **hamar errubloko** (5); **hamar mila errublo** (8); **hirurehun errublo** (5); **hirurehun errublo eman** (3); **hogeita bost errublo** (6); **mila errublo** (30); **mila errubloko** (6); **mila errubloko etekina** (3); **milaka errubloren** (3)

---

errubrika 1 *iz* firmatzean, izenarekin batera egiten den marra edo marra multzoa.

Horra Kristinaren leloa, semearekiko nire huts-egite ugarien **errubrika**. Aingeru Epaltza

Eskutitza eskuz sinatua da, denen **errubrikak** hortxe direla, orriaren oinaldean edo bestela ezkerreko ertzean. Edorta Jimenez

2 irud/hed

Sarrera horren ondoan, nola ez, "dokumentu galdua" **errubrika** ageri da. Iban Zaldua

Aldi oroz "hostokada" **errubrikan** presentatzen ditu hegoaldean agertu liburuak. Herria

Basoa zegoen gure atzean, eta txori berde-marroixka bat handik atera eta gure gainetik pasatu zen adierazpenari **errubrika** erantsi nahiz bezala. Bernardo Atxaga

Objektu horientzat *psikopatologia* hitza **errubrika** erreflexiboa, bigarren mailakoa eta sailkapenezkoa da. Xabier Arregi

---

erruda *iz* usain bortitz eta desatsegineko belar landarea, hosto oso zatikatuak eta lore horiak dituena*(Ruta graveolens)*.

Atea ireki, begiak itxi, hamaika usain-belarrek perfumatutako airea biriketaratu -ezkaiak eta erromeroak, salbiak eta **errudak**, izpilikuak eta berbenak-. Joan Mari Irigoien

Ekar ezazue erbinude bat eta **erruda** usaintsu pixka bat. Karlos Linazasoro

Sukaldeko armairuan topatu nuen, belarrez beteriko lapiko baten barruan: toronjondo-hosto, gaztela-lore, **erruda**-adar artean. Juan Garzia

Kontu handiz, xaflarekin angelu justuan joaz, **erruda** temati baten zurtoina moztu zuen. Anton Garikano

---

errudimentu *iz* hasi-masia.

Izan liteke egia, natura **errudimentuzko** organismoen eboluzioan inplikaturik egon zenean, milioika espezimen sortzeko gai izan zela, zortealdi baten aukera, diseinu berri eta hobea sortuko zukeena, bere buruari eskaintzeko. Iñaki Mendiguren

---

errudun 1 *izond/iz* errua duena. ik **hobendun**.

Gainerakook asko sentitu dugu Dostoievskiren ezetza, iaioa baita gureak bezalako bihotz **errudunen** barne-mugimenduak islatzeko orduan. Anjel Lertxundi

Bahitzaile **errudun** batekin, torturatzaile batekin biltzen tematuta. Berria - Euskal Herria

Azkenean sinetsi egingo duk gainera, kabroi **errudun** bat haizela, eta **errudun** uste horrek ustelduko hau. Iñaki Segurola

Legegile jatorrak zein erraz eragotz lezakeen porrot **errudun** asko eta asko, eta zorigaitzak saihestu errugabe saiatuari! Juan Martin Elexpuru

Jasanezina egiten zaiona da laurak arte itxaron behar izatea jakiteko zer ñabardura ezarriko dion argitaletxeak bere zuzentzaile **errudunaren** patuari, nola zigortuko duen gertaera historikoen finkotasunaren aurkako atentatu lotsagabea. Jon Alonso

Nor gara gu bera **erruduntzat** jotzeko? Patxi Zubizarreta

Ez dakigu zergatik errugabea auzitegitik zigorrik gabe irten beharrean **erruduntzat** kondenatzen duten. Imanol Unzurrunzaga

Maitea, horrelako gauzetan ez dago **errudunik**. Lopez de Arana

Erruduna, gizona nahiz emakumea, hiri-sarrerara eramango duzue eta harrika emango hil arte. Jarritako ehun salaketatik bostetan bakarrik zigortzen dituzte **errudunak**. Elizen arteko biblia

Epai zuzengabeak eman dituzu, errugabeak kondenatuz eta **errudunak** askatuz. Elizen arteko biblia

Zuzendaritzaren asmoa langileak «biktima» izatetik «**errudun**» izatera pasatzea da. Berria - Kultura

Kaltetuak eta **errudunak** lasaiago uzteko Kristo bera ere giza bekatuengatik hil zen, eta behin betiko hil ere, errugabea **errudunengatik**, zuek Jainkoarengana eramateko. Edorta Agirre

Gaitzetsi **erruduna**, bere jokabide okerra egotziz, eta agertu zein den zuzena, bere jokabide zuzenaren arabera hartuz. Elizen arteko biblia

Norbaitek beste baten emaztearekin adulterioa egiten badu, heriotza-zigorra izango dute bi **errudunek**. Elizen arteko biblia

Familia bati itsatsi zaion ospe txarra soberanoak ezaba dezakeela, **errudunaren** familia errugabeari bere ageriko elkartasuna agertuz. Juan Martin Elexpuru

Gizon bati krimen bat egozten bazaio, ziega izugarri batean sartzen duzue; ez diozue inorekin harremanik izaten uzten; burdinaz zamatzen duzue, dagoeneko **errudun** epaitua izan balitz bezala. Juan Martin Elexpuru

Batere eskurik ez nuen izan delibero hartan, baina Estefaniak ni egin ninduen **errudun**. Aingeru Epaltza

Horrek egiten al nau **errudun**? Berria - Kultura

Beldur gara epaimahaiak auzipetuak **errudun** ikusteko arrazoirik izan ez arren, ez ote dituen **errudun** deklaratuko. Elizen arteko biblia

Lurie jaunak **errudun** agertzen du bere burua. Oskar Arana

Ministroek, beren buruak **errudun** aitortuz, lotsak jota eta izuturik alde egin zuten. Askoren artean

Ezin aldatu dugun iraganaren **errudun** eta ezin iragarri dugun etorkizunaren bazka nahi gaitin patuak. Anjel Lertxundi

- **Errudun** sentitzen naiz, Joantxo, **errudun**. Juan Kruz Igerabide

Nolerebait haren heriotzaren **errudun** sentitzen naiz. Juan Kruz Igerabide

Maisua eta distzipulua, mila modutan, fedeak sortu ditu, munduan **errudun** sentitze zahar batek. Patziku Perurena

Banatu naizelako ere **errudun** sentiarazten nauzu. Anjel Lertxundi

Herritar arrunt batek oharkabean bekatu egiten badu, **errudun** bihurtzen da. Elizen arteko biblia

Alde bakoitzak bestea jo du **errudun**, eta giroa ez da lankidetza emankorrerako egokiena. Berria - Kirola

Euren etxeetan giza hormonak topatu zituzten, eta auzian **errudun** jo ez arren, bi urteko zigorra ezarri die Federazioak. Berria - Kirola

Erromatarren artean ez dela ohitura inor **errudun** jotzea, lehenbizi bere salatzaileekin aurrez aurre hizketatu gabe. Elizen arteko biblia

Badakigu legeak dioen guztia legepean daudenentzat esaten duela, denen ahoak itxi daitezen eta mundu osoa Jainkoaren aurrean **errudun** ager dadin. Elizen arteko biblia

Saulek, orduan: -Egin zotz, ni eta nire seme Jonatanen artean. Eta Jonatan atera zen **errudun**. Elizen arteko biblia

Bazetorrela Ulises, lehoi baten antzera, **errudun** guztiak zigortzera, itsasoan egundahalako nekeak nozitu eta gero. Juan Kruz Igerabide

Derrigorrean pauso bat aurrerago joan behar da, hau da, **errudunak** zigortu behar dira. Berria - Mundua

Txostenak ez ditu tortura horien **errudunak** aipatzen. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Errudun zuzenaren moldeak oro biltzen ditu egun, hara froga. Itxaro Borda

Horren **errudun** nagusia Ettore Messina da. Berria - Kirola

Zacarias **errudun** perfektua da estatubatuarrentzat. Berria - Harian

Errazena, entelekia: klimaterioa, menopausia eta andropenia **errudun** unibertsal direla aldarrikatuko dugu. Edorta Agirre

Ezbeharraren **errudun** bakarra bere burua ez baizik magalean zuen pistola beltza izan balitz bezala. Joxean Agirre

Bezero eta langileen ustez, **errudun** bakarrak «agintariak» dira. Berria - Ekonomia

Egia da, niri ere itogarria egiten zitzaidan herria, uste nuen nire herria zela nire ezinen edo aurrera ateratzeko eragozpenen **errudun** madarikatua. Anjel Lertxundi

Ustezko **errudunari** fisikoki eta psikologikoki sufriarazi nahi diete, galdeketetan erresistentzia ahal bezain txikia izan dadin. Berria - Mundua

Derrigorrezko **erruduna** naiz! Joanes Urkixo

Beti dago hezur-haragizko **errudun** bat, bestela nora joko genuke hiritar arruntok? Berria - Kultura

3 (izan aditzarekin)

Errudun naiz, bai, **errudun** naiz, baina ez hain **errudun**. Jose Morales

Beraz geu gara **errudunak**, gu, biktimok? Urtzi Urrutikoetxea

Eskuak dira **errudunak**. Berria - Kultura

Torturen **errudun** dela onartu du sarjentu batek. Berria - Mundua

Gobernu batek neurri eragingarriak abian jartzen ez baditu, indarkeriaren **errudun** da. Berria - Euskal Herria

Hein batean, neroni izan nintzen neure nekeen **errudun**. Aingeru Epaltza

Hilketa horien **errudun** da. Elizen arteko biblia

Halako krimen izugarrien **errudun** direnek, nahiago izaten dute iluntasuna argia baino. Koro Navarro

Batzuek are esaten zuten, **errudun** ez bazen ere, zigortu beharra zegoela, edozer oker egiteko gauza zen bihozgabea zelako. Josu Zabaleta

Baliteke nire samurtze honen **errudun** nire irudimena baizik ez izatea. Josu Zabaleta

Bera izango da bere heriotzaren **errudun**. Jose Antonio Mujika

Botorik egiten ez baduzue, ez zarete izango **errudun**. Elizen arteko biblia

Erregea ikusi nahi nuke. **Errudun** banaiz, hil nazala". Elizen arteko biblia

Erruduna dela ebazten badute, 15 urteko espetxe zigorra ezar diezaiokete. Berria - Gaiak

Gauez etxea zulatzen harrapatu eta lapurra jo eta hiltzen duena ez da hilketaren **errudun**. Elizen arteko biblia

Neu nauzu aitaren senitarteko guztien heriotzaren **errudun**. Elizen arteko biblia

Eta ni Cunningham **erruduna** zelakoan. Lopez de Arana

Harrapariak dira horren **errudun** nagusi: mirotz, gabirai eta belatzak, batez ere. Berria - Euskal Herria

Hura baitzen, nire ustetan, gertatutako hondamendiaren **erruduna**. Juan Martin Elexpuru

Legeek torturatzen zaituzte, **erruduna** zarelako, **erruduna** izan zaitezkeelako, zu **erruduna** izatea nahi dudalako. Juan Martin Elexpuru

De Thou ez zen **erruduna** ez gizonen eta ez Jainkoaren aurrean. Juan Martin Elexpuru

Asmoa izaten da **errudun**, Eszter, asmoa. Ander Irizar

Ondasunzaletasuna da guztiaren **erruduna**. Jose Morales

Horretan gu **errudunago** garela uste dut. Xabier Amuriza

Bere gidaritza izan zen emanaldiaren arrakastaren **«errudun»**. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Weasley andrea haien aurrean geratu zen, eskuak mokorretan jarrita, aurrena bati eta gero besteari begiratuz, haien **errudun**-aurpegietan erreparatuz. Iñaki Mendiguren

Luzaro gabe damutuko zitzaidan tontakeria egitera nindoala pentsatu nuen, heziketa menderatzaile baten ondorio den **errudun** konplexua gaineratu baitzitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Errudun sentimenduak eragitea: zure erruz ingurukoak sufritzen ari direla sinetsaraztea. Berria - Harian

Arrazoiz dio emakumeak seme edo alaba bat galtzen duenak atsekabe infinitua behar duela sentitu, Job santuarenaren parekoa; baina beharko luke gehitu, beharbada, are jasangaitzago dela atsekabe hori, inork esplikatzen ez dakien **errudun**-sentimena itsasten zaiolako estu. Imanol Zurutuza

Errudun aitortza erretiratu nahi du, hori aitortu zuenean lege sistemaz zuen ezagutza erabat okerra baitzen. Berria - Mundua

Beharbada kontua da ez dudala onartu gura, atzo, ez nintzela berarekin berba egiten ausartu ere egin eta **errudun** sentsazioa geratu zitzaidala. Patxi Zubizarreta

Epaia emateko aski da zentzun arrunt eta xaloa, askoz ere fidagarriagoa izaten dena ohiko epaile **errudun**-bilatzailearen jakinduria baino. Juan Martin Elexpuru

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ingalaterrako legeek ez dute traizio **errudun** jotzen, traizioaren berri jakin arren, jakinarazten ez duena. Juan Martin Elexpuru

Burdinazko tresnaz norbait jo eta hiltzen duena, hilketa-**errudun** da: heriotzara emango dute. Elizen arteko biblia

Horrela, ez da errugabeen odolik isuriko Jaunak zeuen Jainkoak ondaretzat emango dizuen lurraldean, eta ez zarete hilketa-**errudun** gertatuko. Elizen arteko biblia

6 *errudun egin*

Hala ere itsasoa baretzen ez zela-eta, ekaitzaren **errudun** Jonas **egin** zuten. Edorta Jimenez

Zuzendaritzak langilea lan istripu larri baten **errudun egin** du. Berria - Ekonomia

Errezeta ez edukitzeak **errudun egiten** ninduen. Joseba Urteaga

Esan duzunaz **errudun egiten** duzu zeure burua. Elizen arteko biblia

Prozesu nagusi entzutetsu horietan badago akusatu bakarra **errudun egiteko** agindu orokor bat, horrek gertakarietan pertsonalki parte hartu ez badu ere, eta gertakarien lekuan egon ez bada ere. Berria - Harian

Zertarako egin nahi duzu ikerketa hori? Zertarako **egin errudun** Israel? Elizen arteko biblia

Hitzarmen bat adostu zenuten, ni **errudun** ez **egiteko**? Koldo Izagirre

· Horrek **errudun** bikoitz **egiten** du, berak nahikoa gaitasun eta distantzia baitauka gauzak hausnartu eta non sartzen den ikusteko. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitor mendikute errudun (3); **askoren errudun** (4); **aurrean errudun** (5); **auzipetuak errudun** (3); **baina errudun** (4); **bat errudun** (4); **baten errudun** (6); **bere burua errudun** (7); **bere heriotzaren errudun** (3); **bi errudun** (3); **burua errudun** (8); **da errudun** (12); **da eta errudun** (3); **den errudun** (6); **den errudun eta** (3); **du errudun** (3); **dute errudun** (3); **egoeraren errudun** (7); **ere errudun** (11); **errudun aitortu** (5); **errudun aitortzen** (3); **errudun ala** (4); **errudun ala errugabe** (3); **errudun bakarra** (14); **errudun bakarrak** (3); **errudun banintz** (3); **errudun bat** (8); **errudun bihurtu** (8); **errudun bihurtuko** (5); **errudun bihurtzen** (15); **errudun bihurtzen da** (9); **errudun da** (10); **errudun dela** (15); **errudun direla** (6); **errudun edo** (6); **errudun edo errugabe** (3); **errudun egin** (5); **errudun egiten** (7); **errudun ere** (4); **errudun eta** (12); **errudun ez** (13); **errudun gara** (4); **errudun gisa** (4); **errudun handienak** (3); **errudun izan** (14); **errudun izango** (15); **errudun izatea** (3); **errudun jo** (13); **errudun jotzeko** (3); **errudun jotzen** (5); **errudun nagusia** (9); **errudun nagusiak** (4); **errudun nagusien** (3); **errudun naiz** (5); **errudun nintzela** (4); **errudun sentiarazi** (6); **errudun sentimena** (5); **errudun sentitu** (24); **errudun sentitu behar** (3); **errudun sentitu gabe** (3); **errudun sentitu zen** (8); **errudun sentituz** (5); **errudun sentitzea** (3); **errudun sentitzeko** (6); **errudun sentitzen** (43); **errudun sentitzen da** (5); **errudun sentitzen naiz** (7); **errudun sentitzen nintzen** (5); **errudun sentitzen zen** (7); **errudun zarela** (3); **errudun zela** (5); **errudun zirela** (3); **eta errudun** (29); **eta errudun sentitzen** (5); **ez errudun** (3); **ez naiz errudun** (5); **ez zarete errudun** (3); **gara errudun** (8); **guztiaren errudun** (4); **guztien errudun** (4); **guztiok gara errudun** (3); **haren heriotzaren errudun** (3); **heriotzaren errudun** (12); **hilketa errudun** (4); **hilketa errudun da** (3); **hilketaren errudun** (7); **horren errudun** (15); **horren errudun nagusia** (3); **hura errudun** (3); **izateaz errudun** (3); **mendikute errudun** (3); **naiz errudun** (6); **zarete errudun** (3); **zela errudun** (3); **zen errudun** (4); **ziren errudun** (6); **zuen errudun** (5); **zuten errudun** (3)

are errudunago (3); **bere burua erruduntzat** (14); **bi errudunek** (3); **burua erruduntzat** (16); **burua erruduntzat jo** (13); **da erruduna** (10); **dira errudunak** (7); **dute bi errudunek** (3); **egiazko errudunak** (4); **epaileak erruduntzat** (3); **ere errudunak** (3); **erruduna ala** (3); **erruduna ala errugabea** (3); **erruduna bada** (3); **erruduna da** (5); **erruduna dela** (12); **erruduna edo** (3); **erruduna ez** (5); **erruduna izan** (3); **erruduna naiz** (4); **erruduna naizela** (3); **erruduna zela** (5); **errudunak bilatzea** (4); **errudunak direla** (5); **errudunak ez** (4); **errudunak zigortu** (6); **errudunak zigortu behar** (3); **errudunarekin batera** (4); **errudunen bat** (3); **errudunen bila** (3); **errudunen buru** (3); **errudunik ez** (4); **erruduntzat jo** (32); **erruduntzat jo du** (5); **erruduntzat jo ondoren** (3); **erruduntzat jo zuen** (9); **erruduntzat jo zuten** (3); **erruduntzat jotzeko** (4); **erruduntzat jotzen** (10); **erruduntzat joz** (5); **erruduntzat joz gero** (5); **eta erruduna** (5); **eta errudunak** (22); **eta errudunaren** (5); **ez zen erruduna** (3); **guztiak erruduntzat** (3); **guztiaren erruduna** (7); **haren guztiaren erruduna** (3); **heriotzaren erruduna** (3); **heriotzaren erruduntzat** (3); **honen erruduna** (4); **horren erruduna** (6); **zela erruduna** (3); **zen erruduna** (8)

erruduntasun 1 *iz* errudun izateko nolakotasuna edo zertzelada.

-Badakit -erantzun zion Harryk, gogor saiatuz bere aurpegian **erruduntasun** edo beldurraren arrastorik ager ez zedin-. Iñaki Mendiguren

Egutxi agureak ez zuen lehen bisitako jakin-mina sentitzen, baizik eta **erruduntasun** eta lotsa jakin bat. Ibon Uribarri

Ez nintzela ametsetan ari erantzuten nion nik -ez oso seguru halere, inoiz aienatzen ez zen **erruduntasun** zahar batek kolpaturik-, nire besoetan hil zela. Joxan Elosegi

Maitasun primitiboak gorroto primitiboa konkistatzen du, **erruduntasun** primarioaren kargarekin zamatzean. Iñaki Mendiguren

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erruduntasun susmo orotatik aske dago filma. Berria - Kultura

Oroi-mina, kale maite haienganako mirespen neurrigabea, **erruduntasun** sentipen izugarria, pasioaren gailurra iritsi duen amodioa. Ronek **erruduntasun**-sentimenduz irribarre egin zion Harryri. Eskarne Mujika

Horregatik, **erruduntasun** sentimenduari damuarena zerraiola, Sergiori eskutik heldurik, hala esan zion: [...]. Joan Mari Irigoien

Etsai bati askatasuna kentzeko ahalmena ematea edozein aitzakia xumerekin, edota lagun bat zigorrik gabe uztekoa, honen aurkako **erruduntasun** froga garbiak egon arren. Juan Martin Elexpuru

Besterik gabe erakunde batekin harreman organikoa esan, eta **erruduntasun** printzipioa ezartzen zaigu. Berria - Euskal Herria

Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuak salatu zuen PSOEren gobernuak «bere garaian Aznarrek ezarri zuen **erruduntasun** presuntzioa» erabiltzen jarraitzen duela. Berria - Gaiak

Gustatu zitzaidan **erruduntasun** miko bat haren bisaian islaturik ikustea. Aingeru Epaltza

Epaia emandakoan, frakez jantzitako abokatu defentsariak agurtu ondoren, eta haien begi errukior, **erruduntasun**-adierazle eta ezintasunez txundituei ihes eginez. Jose Morales

3 ***erruduntasun konplexu***

Besteek eramaten gaituzteneko sentipena beti da **erruduntasun konplexuen** askatzaile eta zama kentzaile iheslariarentzat. Harkaitz Cano

Kontsumitzailearengan (adin txikikoaren baitan, bereziki) inolako eskrupulu edo **erruduntasun-konplexurik** ez sortzeko, sistemak begien bistatik apartatuko digu jan beharrekoa, hori jateari uko egiteak galera eskerga ekarriko lioke-eta. Edorta Agirre

Mikel abandonatu izanagatik inkontzienteki bere buruari inposaturiko zigorra iruditzen zitzaion, **erruduntasun konplexua**. Eider Rodriguez

Halaxe egon zen, egun batzuetan, **erruduntasun konplexu** baten menera. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere erruduntasuna (3); **erruduntasun konplexu** (3); **eta erruduntasun** (4)

---

errueda *iz* gurpila. ik **errobera**.

Auto txuriak bere atzeko **erruedarekin** Saxori oina zanpatu zion. Pablo Sastre

Gelditu zaiok hanka **erruedapean** eta, sustoarekin atzera erori duk eta, krak! orkatila hautsi zaiok. Pablo Sastre

Gero amak maniobraren bat egin behar izan zian eta, semeari lepoa **erruedapean** hartu omen zioan! Pablo Sastre

---

errugabe *(orobat **errukabe** g.er.)* 1 *izond/iz* errurik ez duena; errudun ez dena. ik **hobengabe**.

Emakume babesgabeei zintzurra moztu zenieten arkume **errugabe** bailiran. Jon Alonso

Gauetan maiz ikusten da jende gaixo **errugabe** hori ilunpetan ibiltzen, haurrak negarrez, beti aurrera eta aurrera. Josu Zabaleta

Jesus bezalako apaiz nagusia behar genuen guk: santu, **errugabe** eta kutsatugabea, bekatariengandik bereizia eta zeruak baino gorago jasoa. Elizen arteko biblia

Epaileek errugabea **errugabe** aitortuko dute eta erruduna errudun. Elizen arteko biblia

Horrela, Kristo agertuko den egunean garbi eta **errugabe** aurkituko zaituzte. zuen kontu ezarriko da lurrean isuri izan den **errugabe** guztien odolaren errua. Elizen arteko biblia

Gezurretan zin egiten badu, ez da **errugabe** gelditukо, ezbeharrez beteko zaio etxea. Elizen arteko biblia

Dirua maite duenak ez du **errugabe** iraungo, irabaziaren bila dabilena beronen erruz galbideratuko. gure gorputzean haren funtzioa ahitzen denean, kanpora botatzen dugu, baina nitrogeno izaten dirau beti, aseptiko, **errugabe**. Elizen arteko biblia

Zeren eta errudun edo **errugabe** jotzen duen epai behin betikoak ekarriko baitu inpunitatearen lilura kentzea. Juan Martin Elexpuru

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Orduan, **errugabe** sentibera errudun aitortuko da, horrela oinazea gelditukо dela pentsatzen duenean. Juan Martin Elexpuru

Legegile jatorrak zein erraz eragotz lezakeen porrot errudun asko eta asko, eta zorigaitzak saihestu **errugabe** saiatuari! Juan Martin Elexpuru

3 (izan aditzarekin)

Ez dakigunean akusatua errudun ala **errugabe** den. Juan Martin Elexpuru

Errugabe izanik ere, ezin izango dut bururik altxatu, lotsaz betea bainago, miseria beti begi aurrean. Elizen arteko biblia

Daniel, **errugabe** izateagatik, libratu egin zen lehoien haginetatik. Elizen arteko biblia

Garbi azaldu duzue **errugabe** zinetela arazo honetan. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esan zuelarik, uste izatekoa da **errugabe**-aurpegiaz, Gauza bat bederen seguru dakigu, zeuen errukiak bultzatuko zaituztela lan hau egitera. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akusatu errugabea (4); **ala errugabe** (3); **ala errugabe den** (3); **ala errugabea** (3); **aurrean errugabe** (4); **baina errugabea** (4); **bera errugabea** (4); **berak errugabea** (3); **berak errugabea dela** (3); **berrogeita hamar errugabe** (5); **biktima errugabe** (4); **da errugabe** (3); **da errugabea** (4); **du errugabe** (6); **du errugabea** (3); **edo errugabe** (4); **edo errugabea** (3); **ere errugabea** (3); **errudun ala errugabe** (3); **errudun edo errugabe** (3); **erruduna ala errugabea** (3); **errugabe aitortu** (3); **errugabe asko** (3); **errugabe aurkitzen** (5); **errugabe aurkitzen baditut** (4); **errugabe bat** (12); **errugabe batek** (3); **errugabe baten** (8); **errugabe dela** (9); **errugabe dela aldarrikatu** (4); **errugabe den** (4); **errugabe eta** (10); **errugabe haien** (3); **errugabe izan** (3); **errugabe izango** (4); **errugabe izanik** (4); **errugabe izendatu** (4); **errugabe jo** (15); **errugabe jo ditu** (4); **errugabe jo zituen** (4); **errugabe naizela** (5); **errugabe sentitzen** (3); **errugabe zela** (3); **errugabea da** (19); **errugabea dela** (49); **errugabea dela dio** (7); **errugabea dela esan** (7); **errugabea den** (6); **errugabea eta** (6); **errugabea eta zintzoa** (3); **errugabea hil** (5); **errugabea izanik** (4); **errugabea naiz** (8); **errugabea naizela** (5); **errugabea nintzela** (5); **errugabea zela** (25); **errugabea zela esan** (5); **errugabea zela eta** (3); **errugabea zen** (8); **errugabeak dira** (7); **errugabeak direla** (20); **errugabeak direla esan** (5); **errugabeak diren** (6); **errugabeak eta** (4); **errugabeak hil** (3); **errugabeak hiltzea** (3); **errugabeak hiltzen** (7); **errugabeak izan** (4); **errugabeak zirela** (5); **eta errugabe** (15); **eta errugabea** (12); **eta errugabea dela** (3); **eta errugabeak** (3); **eta errugabeen** (4); **garbi eta errugabe** (5); **gizon errugabe** (3); **guztiz errugabea** (3); **hamar errugabe** (5); **haur errugabe** (3); **herritar errugabeak** (3); **hori errugabea** (4); **hori errugabea da** (3); **jende errugabea** (5); **lagun errugabe** (3); **odol errugabea** (4); **pertsona errugabe** (3); **zein errugabe** (3); **zibil errugabeak** (3)

---

errugabeki *adlag* errukirik gabe.

Edo eskimalei, ordu arte **errugabeki** latza zen izotz-geruzaren kontra eroso habian babestuta egonak, izotz hori edozein *homo homini lupus* baino auzoko hobea zutelarik. Iñaki Mendiguren

Huggyns dk. egiptologo ospetsuak argitzen du hilobiak **errugabeki** "induska" daitezkeela barrukoak "kiratsa zabaltzeari" utzi bezain laster, ordurako arimak lekua alde batera hustua baitu. Xabier Olarra

errugabetasun 1 *iz* errugabea denaren nolakotasuna.

Ardiak berez adierazten dituen **errugabetasuna** eta xalotasuna maite zituelako. Askoren artean

Egia da, Martin hil eta gero, haren **errugabetasuna** aitortu zuela epaileak; baina, gaur arte, inongo agintarik ez du egindako akatsa aitortu, ez familiari barkamena eskatu. Berria - Harian

Azken arnasara arte aitortuko dut neure **errugabetasuna**. Elizen arteko biblia

Beti bidea irekita utzi behar zaio **errugabetasuna** frogatzeko eskubide sakratuari. Juan Martin Elexpuru

Helegite auziko azken eguna datorren asteartea izango da eta abokatuek bi akusatuen **errugabetasuna** aldarrika dadin eskatuko dute. Berria - Mundua

Jean Calas heriotza-zigorrera kondenatu zuten 1762ko martxoaren 9an eta hil egin zuten torturak jasan ondoren, nahiz eta berak bere **errugabetasuna** ozen aldarrikatu beti. Juan Martin Elexpuru

Espainiako Auzitegi Nazionalak Auzmendiren **«errugabetasuna** baieztatuko» duela espero dute jesuitek. Berria - Euskal Herria

-Nire **errugabetasuna** zalantzan jartzen al duzu? Migel Angel Mintegi

Giza justiziak, ekintzak baizik ez baititu ikusten, itun bat besterik ez du gizonekin, **errugabetasunarena**; jainkozko justiziak, aldiz, pentsamenduak ikusten baititu, bi itun ditu, **errugabetasunarena** eta damuarena. Iñaki Iñurrieta

Aitorpenen balioaren egiaztatze erabatekoa izan zen azterketaren emaitza, eta horren ondorioz egiaztatu zen St. Eustacheren **errugabetasunarena** ere. Koro Navarro

Haurrak zituzten gogoan, erruaren ekonomian sinesten zutelako, hau da, haurren **errugabetasunean** eta beraz, haur ez direnen erruduntasunean. Iñaki Segurola

Hau gertatzen da, norbait, bekatuaren bidez biluzik geratzen den bakoitzean, damuaren eta aitortzaren bidez berriro **errugabetasunez** janzten denean. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bereiz daitezke iruzurra eta erru larria, erru larria eta txikia, eta hau eta **errugabetasun** osoa. Juan Martin Elexpuru

Bat-batean, gogor kolpatu ninduen zoruak, infernuaren erraietatik sorturiko ukabil erraldoi baten gisan, erruki izpirik gabe, eta une hartan hauts bihurtu zen nire **errugabetasun** guztia, nire haur-xalotasuna. Juan Kruz Igerabide

Amabirjinaren garbitasun eta **errugabetasun** erabatekoak. Patxi Zubizarreta

Costak bereganatzen zuen **errugabetasun** irainduaren irudia. Jon Alonso

Batek baietz esaten duen bitartean besteak ukatu egiten badu, ez dago gauza ziurrik, eta, horregatik, bermatu egin behar da bakoitzaren ustezko **errugabetasuna**. Juan Martin Elexpuru

Animaliak ere halako eraspen batez Frantziskorengana erakarriak sentitzen ziren, eta izaki bizigabeak haren aginduetara jartzen ziren, gizon santua, tolesgabe eta zuzena zen aldetik, jatorrizko **errugabetasunera** bihurtua balitz bezala. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Guardia zibilari **errugabetasun** ustea zor zaiola, guardia zibilak ez duela zertan frogatu behar inor torturatu ez duenik. Joxerra Garzia

Errugabetasun ustea ez omen zen errespetatu, eta proba sendorik gabe, txirrindularia erruduntzat jo zuten. Berria - Kirola

«Komunikabideen epaiketak errudun izendatu ditu Hondarribiko irakasleak eta horregatik beren **errugabetasun** printzipioa aldarrikatu nahi dugu», esan du EILASek. Berria - Euskal Herria

Peio Serbielle askatzeko deialdia egin zuen atzo Miarritzetik Jean-François Blanco abokatuak Serbielleren senideekin batera, **«errugabetasun** presuntzioa errespetatu beharra delako eta haren lan artistikoa arriskuan jarria delako». Berria - Harian

Hasiera bateko testua *Nik ez dut Ada hil* esaldiarekin hasten zen: nire bizitza hondoratu omen duen gertakizun bati buruzko **errugabetasun**-aitormenarekin. Anjel Lertxundi

Delitu ankerrenetan (eta, beraz, arraroenetan) ikerketa-denbora laburtu egin behar da akusatuaren **errugabetasun**-probabilitatea handitzeko. Juan Martin Elexpuru

Hori da, izan ere, debozioaren bidez santua Jainkoarengana jasotzen zuena, amore ematearen bidez lagun hurkoarengana makurtzen zuena, [...] eta izaki bakoitzarekiko adiskidetzearen bidez hasierako **errugabetasun**-egoerara eramaten zuena. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzipetuen errugabetasun presuntzioa (4); **bere errugabetasuna** (22); **bere errugabetasuna aldarrikatu** (3); **errugabetasun hori** (3); **errugabetasun presuntzioa** (33); **errugabetasun presuntzioa aldarrikatu** (3); **errugabetasun presuntzioa errespetatu** (3); **errugabetasun presuntzioa errespetatzeko** (5); **errugabetasun presuntzioaren** (5); **errugabetasun printzipioa** (10); **errugabetasun printzipioa aldarrikatu** (3); **errugabetasun printzipioak** (3); **errugabetasun probabilitatea** (3); **errugabetasun ustea** (6); **errugabetasuna aldarrikatu** (8); **errugabetasuna aldarrikatu zuen** (3); **errugabetasuna frogatu** (8); **errugabetasuna frogatzeko** (7); **errugabetasuna frogatzen** (7); **errugabetasuna frogatzen duten** (3); **eta errugabetasun** (9); **haien errugabetasuna** (3); **haren errugabetasuna** (4); **nire errugabetasuna** (3); **ustezko errugabetasuna** (3)

---

errugabetu, errugabe(tu), errugabetzen 1 du *ad* errugabetzat jo, errugabe deklaratu.

Espainiako Txirrindularitza Federazioak Aitor Gonzalez ustezko dopin kasuagatik zigortzea proposatzen zuen txostena artxibatzea erabaki du, eta txirrindularia **errugabetzea**, bide batez. Berria - Kirola

Fiskalak 32 urteko kartzela zigorra eskatu arren, epaimahaiak **errugabetu** egin zuen. Berria - Euskal Herria

Castela eta Andriuzzi Erignac prefeta hiltzeaz **errugabetu** dituzte. Berria - Mundua

Espainiako Auzitegi Gorenak Emilio Alonso Manglano eta Javier Calderon CESIDeko zuzendari ohiak **errugabetu** egin ditu HBren kontrako legez kanpoko entzuketak babesteko delituaz. Berria - Euskal Herria

Leporatzen zizkioten hiru erasoetatik **errugabetu** zuten *Emgann* (Borroka) taldeko eledun ohia. Berria - Mundua

Ezin ahaztu daiteke Martin Ugalderekin gertatu zena; zorionez, hil ostean **errugabetu** zuten, baina nola ordaindu egindako kaltea? Berria - Euskal Herria

Bezero bat bortxatzea egotzi zioten taxi gidaria **errugabetu** dute. Berria - Euskal Herria

Idazlea **errugabetzen** du, jenioa izateko apur bat maltzurra izan behar delako aitzakia erabiliz. Berria - Kultura

Espainiako justiziak zigortuko nau, baina euskal justiziak **errugabetuko**. Berria - Harian

Sei alditan **errugabetu** dute, delitua jada preskribatuta zegoelako. Berria - Harian

Jauna, auzi-entzuleon aurrean asmo gaiztoaren ukapen honek nazala hain **errugabetu** zure gogo-bihotz guztiz zabalean, nola baininduke, etxe gainera bota gezia, eta anaia zauritu banu. Juan Garzia

Defentsak, berriz, akusatu guztiak **errugabetzeko** eskatu dio epaileari. Rollebonek ez zuen inondik ere egiazale jokatzen ilobarekin, hartaz baliatu nahi zuen, pentsatutakoak huts eginez gero **errugabetzeko** lekuko gisa ager zedin Paulo I.aren aurrean. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Baina erruak banatzeak ez ditu erraustegiak **errugabetzen**. Berria - Gaiak

---

errugabetze *iz* errugabetzat jotzea, errugabe deklaratzea.

Erresuma Batuan izaniko hainbat **errugabetze** kasuk ere -Guilfordeko lau kideena adibidez- interes hori areagotu egin zioten. Berria - Euskal Herria

Francisco Bujan agentearen **errugabetzeari** buruz, bere parte hartzearen zantzurik ez dela aurkitu argudiatu du Auzitegi Gorenak. Berria - Euskal Herria

EMGANN ezkerreko talde independentistak Korsikako Jean Castela eta Vincent Andriuzzi abertzaleen **errugabetzea** txalotu, eta Frantziako sistema judizialak abertzale korsikar eta bretoien kontra daraman jazarpena gaitzetsi zuen. Berria - Mundua

Erresuma Batuko egunkari gehienek BBC kateak jaso duen egurra eta Tony Blair lehen ministroaren zein bere laguntzaileen **errugabetzea** nabarmendu dute. Berria - Mundua

Ez dago ados Manglano eta Calderonen **errugabetzearekin** eta boto partikular bat idatzi du. Berria - Euskal Herria

---

errugbi *(orobat **errubi** g.er. eta **errugby** g.er.)* **1** *iz* futbolaren antzeko kirola, hamabost laguneko bi talderen artean eskuez eta oinez baliatuz eta baloi arrauzkara batekin jokatzen dena.

Hamahiruko **errugbia** indartzen ari da berriro, eta hamabostekoan ere sartzen ari da joko era. Berria - Kirola

Gero-eta kirolari gehiago badira euskal selekzioaren alde agertzen direnak, bai pilotan, bai bertze kiroletan, **errugbia**, futbola, esku-baloia eta abar. Herria

Kanboarrak iazko sasoia amaituta utzi egin zuen **errugbia**, 38 urte zituela. Berria - Kirola

Aintzat hartu behar da Argentinan **errugbia** amateurra dela hein handi batean. Berria - Kirola

Errugbia: Datorren larunbatean ikusiko dugu telebixtan aurtengo xapelgoaren azken partida: Tolosarrak Paristarren kontra. Herria

Goizetan ardiak deizten ditut, arratsaldetan **errugbian** jokatzen. Ramuntxo Etxeberri

Che Guevarak ere **errugbian** jokatzen zuen. Berria - Kultura

460 haur, neska eta mutiko, 7 urtetik 11rainokoak, bildu dira Hendaiako hondartzan, ekainaren 9an, egun osoan **errugbian** aritzeko, besta giroan. Herria

Pixkat **errugbian** ari izan gira bainan ez zen ontsa ekarria, **rugbian** aritzea. Menane Oxandabaratz

Kaskezurrarekin **errugbian** jostatu berri zirenak ez ziren kalostrapearen maldan zeuden pagano erreak, hortzak horztegi, so zeuzkatela ohartu ere. Itxaro Borda

Materialaz gain jendeak dituzte eskas: bereziki nerabeak eta txikiak **errugbian** trebatzen lagunduko dituztenak. Herria

Errugbian bezala: jo ostikoa, eta jarraitu baloiari. Berria - Harian

Landetarrak lau sasoi eman zituen Miarritzen eta 2003-2004 sasoia amaituta esan zion adio **errugbiari**. Berria - Kirola

Zure amak euskal rocka deskubriarazi zidan eta nik dizkiot **errugbiaren** sekretuak ulertarazi. Ramuntxo Etxeberri

Errugbiko pilotaren boteak irregularra behar du, definizioz, baina gomazko pilota batenak ez, pilota biribila delako, waterpolokoa bezala. Unai Elorriaga

2 (izen elkartuetan lehen osagai gisa)

Biarritz Olympique **errugbi** batasuna eta Miarritzeko euskal taldeen artean. Herria

Europako **Errugbi** Kopa. Aratz Gallastegi eta Oskar Astarloa **errugbi** jokalariak, Iker, Eneko eta Kepa Acero surflariak, Oier Zearra eta Juan Martinez Irujo pilotariak. Berria - Euskal Herria

Elkarte horietatik bat dugu Sarako **errugbi** taldea. Herria

Arrabots handirik egin gabe, AORC **errugbi** elkarteak bere helburu larrienak bete ditu bururatu berria den sasoinean. Herria

Mutikoak berantago etortzen ziren: **errugbi** partiduak jokatu eta gero. Ramuntxo Etxeberri

Bakartasun tokiko bizitzari berritz lotu nintzen, bizpahiru egun horietako aldaketak eta kalapitak **errugbi** match baten denboraldi erdia izan balire bezala, laster ahantzirik. Filipe Bidart

Abantxu bi oren iraun du Paristar eta Miarriztarren arteko **errugbi** finalak. Herria

Lehen **errugbi** zelaiko harmailak garbitzen ibiltzen nintzen, Palo Altoko Unibertsitate hauta batean. Javi Cillero

Bardoze kirol taldeak abisatzen du apirilaren 24 eta 25 ean **errugbi** feria bat antolatuko duela. Herria

Errugbi-liburu idazleak ere kurutzatzen ahalko dira. Herria

Errugbi ibilbidea bukatzean Errumaniara itzuliko dela ziurtatu du Balanek. Berria - Kirola

3 *errugbi zale* ik **errugbizale**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aviron errugbi (5); **da errugbia** (4); **dela errugbia** (3); **dira errugbi** (3); **du errugbi** (3); **du errugbian** (3); **errugbi jokalaria** (6); **errugbi jokalariak** (3); **errugbi partida** (11); **errugbi talde** (4); **errugbi taldea** (3); **errugbi taldeak** (3); **errugbi taldearen** (8); **errugbi zelaian** (8); **errugbia australiako** (4); **errugbia baiona** (6); **errugbia baionak** (9); **errugbia baionako** (3); **errugbia bera** (14); **errugbia bera bera** (4); **errugbia bera berak** (10); **errugbia bokalek** (3); **errugbia da** (3); **errugbia donibane** (7); **errugbia donibane lohizune** (3); **errugbia donibane lohizunek** (4); **errugbia espainiako** (3); **errugbia eta** (5); **errugbia europako** (5); **errugbia europako kopa** (3); **errugbia euskadik** (5); **errugbia euskariansek** (4); **errugbia ez** (6); **errugbia frantziak** (4); **errugbia getxo** (4); **errugbia getxok** (4); **errugbia heineken** (6); **errugbia heineken kopa** (3); **errugbia heineken kopako** (3); **errugbia irlandak** (5); **errugbia miarritze** (9); **errugbia miarritzek** (24); **errugbia miarritzeko** (10); **errugbia ordiziak** (3); **errugbia sei** (3); **errugbia stade** (3); **errugbia top** (13); **errugbia utzi** (3); **errugbia zeelanda** (12); **errugbia zeelanda berriak** (10); **errugbian ari** (5); **errugbian aritzeko** (4); **errugbian aviron** (3); **errugbian eta** (4); **errugbian ez** (3); **errugbian jokatzen** (5); **errugbian miarritzek** (5); **eta errugbi** (5); **eta errugbia** (6); **eta errugbian** (5); **eta errugbiaren** (3); **europako errugbi** (3); **herriko errugbi** (3); **kirolak errugbian** (26); **leihotik errugbia** (16); **olympique errugbi** (3); **puntu errugbia** (3); **telebixta leihotik errugbia** (16); **zuen errugbia** (3)

---

errugbilari *(orobat **errubilari** g.er.)* **1** *iz* errugbi jokalaria.

Ninak pentsatu zuen hirugarren lerroko **errugbilari** baten fisikoa zuela. Ramuntxo Etxeberri

Aita Baionakoa du, **errugbilaria** izan zen eta egun entrenatzailea da. Berria - Kirola

Emakumezko euskal **errugbilariek** sekula izan duten saririk handienarekin gozatu dute, eta bisitaldi gogoragarria izan dela diote. Berria - Kirola

Miarritzeko **errugbilariak** Frantziako xapeldun ditugu, Miarritzerekin batera Euskal Herri osoa dela garaile. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gaztean, **errugbilari** trebea izana zen eta geroxago kirol hortan berean gazte moldatzaile hauta. Herria

Kondaira laburra bezain pollita, Miarritzen ari den **errugbilari** beltz baten ixtorioa. Herria

Aurten kirol erakasleek eta ikasleek nahi ukan dituzte ohoratu kanboar **errugbilari** txapeldunak. Herria

Iragan sasoinean balentria handiak egin dituzten baiones **errugbilari** eta futbolariak,Aviron elkartean direnak. Herria

Euskal Herriko **errugbilaririk** esanguratsuena zara unen honetan. Berria - Kirola

Errugbilari ohia, gizon ederra da. Ramuntxo Etxeberri

Errugbilari ohia harritua, baserrian beti izan direla oilarrak eta etzaiotela debekatzen ahal kukurukuka artzea! Herria

Aholkulari, Doxpi **errugbilari** famatua! Herria

Errugbilari ezagutua izana, Bordele alde hortarik jina Euskal-Herrirat, Donibane Lohizuneko ikastegi batetarat erakasle izendatua izanik, Andre Lesbordes Urruñan bizi da. Herria

Christian Belascain, 50 urte, jeinu haundiko **errugbilaria** izana, supituki hil dena. Herria

3 (hitz elkartuetan)

Bere **errugbilari** ezaugarriak aintzat hartuta, pentsa zitekeen arazoak ukanen zituela uztartzeetan, baina ongi moldatu da. Berria - Kirola

4 (izenondo gisa)

Haur **errugbilariak**. Herria

Emazte **errugbilariek** partida garrantzitsu bat jokatu dute iragan larunbatean Donostian. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errugbilari ohia (4); **frantses errugbilariak** (3); **gure errugbilariek** (3)

---

errugbizale *(orobat **errugbi zale**) izond/iz* errugbiaren zalea dena.

Bezeroekin, taxi-zentrokoekin, emaztearekin, lagun **errugbi zale** batekin. Anjel Lertxundi

Barnealdeko **errugbizaleak** zein du gustukoen, Miarritze ala Baiona? Berria - Kirola

Errugbizaleek bazuten nahiko bazka telebixtan. Herria

Errugbizale eta borroketako soziologoa zenarentzat, ikertzea bera operazio militar bat zen. Berria - Kultura

Azken asteburua berezia izan da **errugbizaleentzat**. Herria

---

errugby ik **errugbi**.

---

erruina *iz pl* etxe eta kidekoen hondakinak.

Gaur bera nirengandik nabarmen urrun ibili da, bai furgonetan esertzerakoan, bai White Houseko indiarren **erruinak** ikustera jaitsi garenean. Goizean, esate baterako, Rubenekin gustura ibili naiz anasazi indiarren **erruinetan** ikusmiran. Patxi Zubizarreta

---

errukabe ik **errugabe**.

---

errukalgarri ik **urrikalgarri**.

---

errukarri **1** *izond/iz* errukia merezi duena.

Bat-batean barruan zeuden guztien gainera erori zen etxea, eta gainerako guztiek heriotzari ihes egin zioten bitartean, gizon **errukarri** hura bakarrik hil zen, azpian harrapatuta. Jose Morales

-Gizagaixo **errukarriak**! -esan du beste norbaitek. Mirentxu Larrañaga

Etxe hartara hurbiltzen ziren agure **errukarrien** zaharmin higuingarriak urte gutxi barru hertsatuko zuen Egutxi ere. Ibon Uribarri

Zergatik, eta justizia maitatzeagatik, kontzientzia garbi edukitzeagatik, alargun babesgabeei eta umezurtz **errukarriei** eskua luzatzeagatik! Jose Morales

Oi, giza gogo **errukarriak**; oi, bihotz itsuak! Xabier Amuriza

Hala bada, jostun musulman bat topatu zuen eta hark bere etxean onartu zuen Amgad **errukarria**. Patxi Zubizarreta

Jende xehea lurreko hautsaren kontra zapaltzen dute, eta jende **errukarriaren** eskubidea baztertzen. Elizen arteko biblia

Munduko izaki itxuragabe eta **errukarri** guztien artean, legendunek ziren berez Frantziskori nazkarik handiena ematen ziotenak. Askoren artean

Zein atsekabeturik zeuden guztiak emakume **errukarri** haien eta debozioz beteriko haien kexaren aurrean! Askoren artean

Aurpegi **errukarri** eta atsekabetuz esku uzkurtuak erakutsi zizkion eta uki ziezazkiola erregutzen zion arrenka. Askoren artean

Emakumea, hortzak karraskan eta aurpegia itxuragabe, garrasika hasi zen ahots **errukarriz**, espiritu gaiztoek ohi dutenez. Askoren artean

Gaiztoak bizitza dohakabe eta **errukarriz** zigortzen baititu eta zintzoak bizitza dohatsuz saritzen. Imanol Unzurrunzaga

Ez zapaldu alargun, umezurtz, arrotz eta **errukarriak**;Jainkoak bere errukizko onginahian **errukarria** bide onera deitzea erabaki zuen, kanpora jaurtia gal ez zedin. Elizen arteko biblia

Ez dut nire zauririk ezkutatzen; sendagile zara, ni gaixo; zu urrikaltsu, ni **errukarri**. Imanol Unzurrunzaga

2 (izan aditzarekin)

Behartsu oro **errukarri** da. Imanol Unzurrunzaga

Errukarriagoak dira gezurretan ari eta engainatzen dutenean, gezurtiari sinetsiz engainatuak direnean baino. Imanol Unzurrunzaga

Kristorengan jarria dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan **errukarrienak** gara. Elizen arteko biblia

Geetharen bizitza **errukarria** zen. Gotzon Garate

· **Errukarriak**, ordea, zuek, lur-itsasook! Elizen arteko biblia

Gu bai **errukarri**, bizitza osoan odola isuri dugunok eta geure bihotzak eta gorputzak lizunkeriaz eta mozkorrez ase ditugunok! Askoren artean

Benetan **errukarria** ni, zaharra izanik ere, mundu honetako ondasunak irrikatzen eta bilatzen baititut! Askoren artean

3 (adizlagun gisa)

Koskatsu hasten denean, orduan **errukarri** uzten du lurra. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots errukarriz (3); **baino errukarriago** (3); **egoera errukarri** (4); **errukarri bat** (9); **errukarri baten** (6); **errukarri eta** (13); **errukarri haiek** (4); **errukarri haren** (3); **errukarri hori** (4); **errukarri horiek** (3); **errukarri hura** (6); **errukarri hura bakarrik** (3); **errukarria ni** (5); **eta errukarri** (6); **eta errukarria** (7); **eta errukarriak** (3); **gizagaixo errukarriak** (3); **gizon errukarri** (6); **gizon errukarri hura** (3); **hain errukarri** (5); **hain errukarri eta** (3); **jende errukarri** (4)

---

errukarriki *adlag* errukarriro.

Errukarriki argala zen. Ibon Uribarri

---

errukarriro *adlag* era errukarrian.

Bat-batean, Jansonen aurpegi argala **errukarriro** zimurtu zen: bazirudien norbaitek indarrez tiratu zuela zimurrak mugiarazten zituzten haritxoetatik, guztiak uzkurtuz. Jose Morales

Neskatilaren ahoa belarriraino okertu zen eta begiak ere, beren zuloetatik irten beharrean, **errukarriro** okertu zitzaizkion. Askoren artean

Poggibonsiko Jakobo izeneko bat hain **errukarriro** makurtua eta kuzkurtua zegoen, ahoa belaunei itsasten baitzitzaien. Askoren artean

---

errukarritasun *iz* errukarria denaren nolakotasuna.

Agure haiek zahartzaroaren **errukarritasunari**, zatartasunari, dohakabetasunari ihes egin eta gaztetasunaren dohainez gainezka izango balira bezala. Ibon Uribarri

Gustura dastatu haut, bai, ezagunak zaizkidalako telefono hariaren bestaldean urkabe ez den hari bat bilatzen dutenen **errukarritasuna**, ezagunak Con Edison argindar fakturetako kartak. Harkaitz Cano

---

erruki **1** *iz* besteren gaitzak, nahigabeak edo zoritxarrak deitoratzera eta haietan parte hartzera bultzatzen gaituen sentipena. ik **urrikalmendu; errukitasun; gupida**.

Frantziskok bere ibilbidearen hasiera gogoratzen die anaiei -legendunekiko **errukia** eta zerbitzua- eta hasierako bizimoduaren ezaugarri nagusiak. Askoren artean

Denok lotzen ditugu amekin zenbait ideia: leialtasuna, **errukia**, babesa, goxotasuna. Berria - Gaiak

Nazareteko Jesus erabat funtsezkoa da gizadiaren historian, antzinako gizarteetan ohikoak ez ziren baloreak - **errukia**, barkamena, pobreziaren goraipamena lehen tokian jarri zituelako. Herria

Eta **errukia** eskatuko ez balu, galdetu zeuk **errukirik** nahi duen. Askoren artean

Ikasia baitzuen ordurako norberaren inozotasunak **errukira** bainoago maltzurkeriara bultzatzen dituela besteak. Felipe Juaristi

Ez zekiagu orain arte egindako bekatuetatik Jainkoaren **errukira** itzultzerik izango dugun. Askoren artean

Hunkitu egiten zuen hark guztiak, pentsatu zuen dramatikoki mutilak bere bakardade oinazetuan, eta lotsa zahar batera eta **errukira** itzularazten zuen. Koro Navarro

Ireki bihotzak Jainkoari, haren askatasunari eta **errukirik** gabeko maitasunari. Berria - Gaiak

Xalak, berriz, orain arte ez du **errukirik** erakutsi bere atzelariak agintzea lortu duen bakoitzean. Berria - Kirola

Aitak agindu bezala, ahal izan zuen moduan jaiki eta, eskuak bilduz, Frantzisko dohatsuaren **errukiari** apalki dei egiten hasi zen. Askoren artean

Santuak, **errukiz** beterik, eskuak ukitu eta sendatu egin zizkion. Askoren artean

Besteak epaitzeko ahalmena hartu dutenek, berriz, erabil bezate **errukiz**. Askoren artean

Han zen berehala haurtxo errugabeak maite dituena, eta dohakabeenganako bere ohiko **errukiaz** gupidatu egin zitzaion. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bihur niregana begiak zeure **erruki** handiaz. Elizen arteko biblia

Askan jarritako belar ondua gorde egin zen, haren bidez Jaunak, bere **erruki** santua oparo isuriz, zamariei eta gainerako animaliei osasuna bihur ziezaien. Askoren artean

Limosna-Emaile handiak bere **erruki** eskuzabalez ematen dizkie duin direnei eta ez direnei. Askoren artean

Besteak, ordea, eragotzi egin nahi zion, **erruki** faltsuak engainatzen zuela esanez. Askoren artean

· Entzun nazazu, Jauna, zure **errukia** gozoa baita. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Inoiz ez du kondena murrizteko eskatu edo biderik egin, inoiz ez zaio kartzelatik irteteko baimenik eman, inoiz ez **erruki** neurririk berarentzat. Berria - Mundua

Behartsuenganako gupida goresten zuen eta dirua banatuz egingo zuten **erruki** -egintza goraipatzen. Askoren artean

Aitak gogor eraso zion **erruki** -egintzetara emana bizi zenari, eta, Kristoren zerbitzua zorakeriatzat joz, madarikazioz oinazetu zuen edonon. Askoren artean

4 ***errukizko*** *izlag*

Ezer ez zutenei **errukizko** eskua luzatuz eta atsekabetuei bihotzeko gupida eskainiz. Askoren artean

Azkenik, usain gozoz bete zenean, Kristok bere **errukizko** altzoa ireki zion. Askoren artean

Bost zentzumenak eta **errukizko** egintzak azalduz. Patxi Altuna

-Ez egin nigana so, ez dezazun **errukizko** ekintza horrekin aldaraz ene burubide zorrotza. Juan Garzia

- **Errukizko** musuak masailean ematen dira, Diego-xuxurlatu zuen-. Jon Muñoz

Txorikume habiatik erori berriari eskaintzen zaion **errukizko** maitasun barea ikusi nuen amaren begietan. Anjel Lertxundi

Baina ezin ezezkorik eman edo ukorik egin: **errukizko** egintza zen. Jose Morales

Ordurako John Hathorne epailea hitzak hitzari koskaka esaten ari zen **errukizko** ohiko formula. Anjel Lertxundi

Gizonek, intelektualtasun-egoera batera iritsirik, **errukizko** eta onginahizko begirada batez begiratzen zuten eszenara. Josu Zabaleta

Pobre gizajo eskazaleen **errukizko** giro horri, elizaren esanera txintxo eta txukun dabilen kristaua ipini beharra zegoen aurrez aurre. Patziku Perurena

Pia begira zegokion, eskuak salmahai gainean Grand Hotelean zituela, begi handi beltz, zabal eta **errukizko** haiekin, esango balio bezala. Josu Zabaleta

Gauza guztiak irribarre ironiko eta **errukizko** batez ikusten zituela esaten zuen. Josu Zabaleta

Haurra loarazteko eta zaharrari hilobian laguntzeko hitz **errukizkoa**. Felipe Juaristi

Eta han zeuden guztiek epaiketan parte hartu ondoren, Jaunak bota egin zuen gizakia paradisutik, erabaki zuzena bezain **errukizkoa** hartuz. Askoren artean

5 ***erruki etxe*** *(orobat* ***erruki etxe*** *g.er.)*

Garai batean **erruki-etxe** deitzen zitzaien zaharren egoitzei, edo mixerikordia. Anjel Lertxundi

Kargutik kendu zituen eraikuntza-batzordeko funtzionarioak; haien egoitzak, Estatuaren ondasun bihurturik, **erruki-etxeak** eta soldaduen semeentzako eskolak izan ziren aurrerantzean. Jose Morales

Frantzian txirorik ez egotea nahi duzue? Ez ezazue limosnarik banatu, eta, batez ere, itxi itzazue zuen **erruki-etxeak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nik behin bakarrik ikusi nuen aitona, hiru hilabete geroago hilko zen **erruki-etxean**. Joseba Urteaga

Eguerdian barau egin eta gero, Santa Ana **erruki-etxera** joan ginen familia osoa, etxean bazkaldu ez genituen barazkiak eta txerriki gatzatua, eta baita dozena bat arrautza ere, otar estalkidun batean hartuta. Anjel Lertxundi

Behin **erruki-etxeko** sala hartan sentitua nuen behar gorriaren laztura, banekien mundu honetan behartsua beti zanpatua, gutxietsia, biktima izaten dela. Eduardo Matauko

Ceciliak, ordea, aire berri bat zuen ordurako, misteriozkoa bezala, familian ohi zuenaren oso bestelakoa; aire tentetxo bat, xotil, elizkoi eta menekoegia, **Erruki Etxeko** mojena bezalakoa. Josu Zabaleta

Egun horretan, izan ere, **Erruki Etxeko** haurrek antzerkia egin behar zuten, urtero bezala, alkatearen eta erretorearen aurrean. Josu Zabaleta

Cecilia, Ilde eta beste guztiak Mariaren Alabak ziren, eta hori zela-eta sarri izan ohi zituzten harremanak **Erruki Etxeko** mojekin. Josu Zabaleta

· Zergatik udal **erruki-etxean** zegoen Adeleri bisita egin zion? Pablo Sastre

6 ***erruki izan*** da/du *ad* ik **errukitu**.

Erruki izango natzaie, bera zerbitzatzen duen semeaz aita errukitzen den bezala. Xabier Kintana

Baina bitartean Jaunaren mahaiak **erruki izan** zion haren zerbitzarien mahaiari. Askoren artean

Jaunak bedeinka eta gorde zaitzala; bere aurpegia erakutsi eta **erruki** dakizula. Askoren artean

Behin eta berriro deiadar egin zion atzetik santuari, **erruki** zekiola eskatuz, hil egingo zela-eta egarria arintzeko ur pixka bat ez bazuen. Askoren artean

· Ene Jainkoa, **erruki** zaitez bekatari honetaz. Elizen arteko biblia

Erruki nitaz, ene Jainko, zapaldua bainaute. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina erruki (5); **batean erruki** (3); **bere erruki** (19); **bere erruki eta** (5); **erakutsi eta erruki** (4); **ere erruki** (3); **erruki barik** (10); **erruki dadila** (4); **erruki dakizula** (3); **erruki diet** (3); **erruki diot** (3); **erruki dut** (8); **erruki edo** (3); **erruki egintza** (7); **erruki egintzak** (8); **erruki eske** (23); **erruki eta** (30); **erruki eta gupida** (8); **erruki eta gupidaz** (4); **erruki etxe** (5); **erruki etxe bat** (3); **erruki etxea** (3); **erruki etxean** (4); **erruki etxeko** (13); **erruki etxera** (7); **erruki faltsuak** (3); **erruki gabe** (16); **erruki gabeko** (4); **erruki gutaz** (3); **erruki hadi** (3); **erruki hadi nitaz** (3); **erruki handia** (12); **erruki handia eta** (3); **erruki handiaz** (4); **erruki handirik** (4); **erruki handiz** (8); **erruki harrigarriz** (3); **erruki izan** (14); **erruki izan zion** (3); **erruki izango** (8); **erruki izateko** (3); **erruki izpirik** (5); **erruki nitaz** (26); **erruki nuen** (3); **erruki sentimendua** (4); **erruki txit** (3); **erruki zaitez** (17); **erruki zaitez nitaz** (4); **erruki zaitezte** (8); **erruki zakizkigu** (7); **erruki zakizkio** (4); **erruki zakizkiola** (3); **erruki zakizkit** (18); **erruki zion** (3); **eta erruki** (48); **eta erruki dakizula** (3); **eta erruki eta** (4); **eta erruki gabe** (3); **eta erruki izan** (3); **ez erruki** (4); **halako erruki** (6); **harenganako erruki** (3); **izan erruki** (3); **izan nire erruki** (3); **jainkoak erruki** (4); **jainkoaren erruki** (3); **nire erruki** (5); **zeure erruki** (8); **zeure erruki handiaz** (4); **zioten erruki** (4); **zioten erruki eta** (3); **zuen erruki** (4); **zure erruki** (6)

bere errukia (10); **bere errukiagatik** (3); **du errukia** (3); **duen errukia** (5); **edo errukia** (7); **ere errukia** (4); **errukia baino** (5); **errukia baizik** (4); **errukia ematen** (16); **errukia ematen dit** (4); **errukia erakutsiz** (3); **errukia eskatu** (11); **errukia eskatu dute** (7); **errukia eskatuko** (3); **errukia eskatuz** (5); **errukia eskatzen** (11); **errukia eskatzen ari** (3); **errukia eskatzen zion** (3); **errukia eta** (42); **errukia eta bakea** (3); **errukia eta gupida** (5); **errukia eta karitatea** (3); **errukia ez** (5); **errukia iritsi** (3); **errukia izan** (8);

errukia izango (3); **errukia merezi** (3); **errukia piztu** (3); **errukia sakrifizioak** (3); **errukia sakrifizioak baino** (3); **errukia sentitu** (7); **errukia sentitzen** (6); **errukiak eraginda** (4); **eta errukia** (38); **eta errukia eskatu** (4); **eta errukiak** (7); **haren errukia** (10); **harenganako errukiak** (3); **jainkoaren errukia** (5); **jainkoaren errukiagatik** (4); **jainkoaren errukiak** (3); **jaunaren errukia** (4); **maitasuna eta errukia** (4); **zeruari errukia** (3); **zeruari errukia eskatzen** (3); **zeure errukia** (5); **zuen errukia** (4); **zure errukia** (5)

baina errukiz (3); **batere errukirik** (7); **batere errukirik gabe** (4); **bere errukian** (11); **bere errukiaren** (3); **bere errukiaz** (10); **bere errukiz** (7); **bere errukizko** (4); **du errukirik** (10); **dute errukirik** (3); **ere errukirik** (3); **errukiaren arabera** (3); **errukiaren eta** (3); **errukiaren zain** (3); **errukiari esker** (9); **errukiari eta** (4); **errukiaz eta** (3); **errukirik aurkituko** (3); **errukirik bere** (3); **errukirik erakutsi** (5); **errukirik eskatu** (3); **errukirik eta** (5); **errukirik ez** (12); **errukirik gabe** (69); **errukirik gabea** (3); **errukirik gabeko** (10); **errukirik izan** (18); **errukirik izan eta** (3); **errukirik izango** (10); **errukirik nahi** (4); **errukitik bizi** (3); **errukiz begira** (3); **errukiz begiratu** (3); **errukiz begiratzen** (4); **errukiz beterik** (6); **errukiz bezala** (4); **errukiz eta** (5); **errukiz hartuko** (4); **errukiz tratatu** (4); **errukiz tratatu nituen** (4); **errukizko egintza** (3); **errukizko egintzak** (3); **eta errukiaren** (3); **eta errukiari** (3); **eta errukirik** (14); **eta errukirik gabe** (7); **eta errukiz** (22); **eta errukiz tratatu** (4); **eta errukizko** (9); **ez du errukirik** (9); **ez dute errukirik** (3); **ez errukirik** (3); **ez zuen errukirik** (11); **inolako errukirik** (8); **jainkoaren errukiaren** (4); **jainkoaren errukiari** (7); **jainkoaren errukiari eta** (3); **jainkoaren errukiaz** (4); **jainkoaren errukira** (3); **jaunak bere errukian** (4); **zuen errukirik** (11); **zuen errukirik izan** (6); **zure errukiari** (3); **zuten errukirik** (3)

---

errukialdi *iz* errukizko aldia.

Ez izan, beraz, borrero horren beldurrik; ager zaitez anaien pareko, onartu heriotza, **errukialdia** etortzean zu ere anaiekin batera berriro aurki zaitzadan. Elizen arteko biblia

Naturak **errukialdi** bat izan du; ez gaitu kartzela batean itxi. Josu Zabaleta

---

errukiarazi, errukiaraz, errukiarazten du *ad* errukitzera behartu.

Bidean eta ez lehenago esanen nion daniarrari txakur txikirik ere ez nuela; **errukiarazteko** ahaleginak eginen nituen. Fernando Rey

Jamesi iruditzen zitzaion orri bakoitza keinu berezi batekin pasatzen zuela, berari zuzendua: nahiz irmoki adieraziz, nahiz aginduz, nahiz inor **errukiarazi** nahian. Anton Garikano

---

errukiarren *adlag* errukiz.

Kantek **errukiarren** eskatzen du askatasuna, erantzukizuna, eskubidea deitzen den bizitzaren arbolako adar lodi hori pausa dadila jakintzaren arbolaren adarrekin batera, gizakiaren begiradari ikuspegiak emateko. Josu Zabaleta

Hura, ikara, **errukiarren**! Josu Zabaleta

---

errukibako *izond* errukigabea.

Han otsoak behar zituzten, hiltzaile seneko zapaltzaile-igotzaile **errukibakoak**, eta gure ingeniari finak ez zituen ezaugarri haiek inola ere betetzen. Jon Arretxe

Bertan zegoen, bere aurrean, sugarretan ikusgarri, txinpartetan bizi, haizean jostari, kean itogarri, usainean **errukibako**. Lutxo Egia

Jauna ez da luzatuko, ez da jasankor izango **errukibakoekin** berauen saihetsak hautsi arte. Elizen arteko biblia

---

errukibera **1** *izond* errukiorra.

Itzuliko da tsarra, eta ohorezko hitza ematen dizut Bere Maiestate **errukiberak** ez zaituela bazter utziko. Jose Morales

Esker onez, Gulanar Itsasokoak mirabe **errukibera** agure eskuzabalarekin esposatu zuen. Patxi Zubizarreta

-Jainko **errukiberak** zure lehengusuarekin elkartu nahi izan zaitu. Patxi Zubizarreta

Pobrezia hura ikusiz, bihotz **errukibera** hunkitu zitzaion. Askoren artean

Octave Blévigneren erretratuaren azpian, "aurrekoaren semea", hitz hauek zeuden, esku **errukibera** batek idatziak: [...]. Monika Etxebarria

Gaztetxoenganako onginahi **errukibera**. Xabier Mendiguren Elizegi

Halako haur-begirada **errukibera** bat zeukan. Anjel Lertxundi

Bazuten Raymonden zorigaizto saminaren berri eta gupida **errukibera** nazkagarri halako bat sentiarazten zien. Mirentxu Larrañaga

Ez dizut ipiniko aurpegi ilunik, **errukibera** bainaiz. Elizen arteko biblia

Galera zahar batean arraunean ari den galeriano baten bizipenak ez al dira kartzelako galerietan atzera-aurrera dabilen galeriano batenak bezain **errukiberak**? Anjel Lertxundi

Gau batez, neure artean, pentsatu nuen bizitza, miragarriro, inoiz itxaron nezakeena baino **errukiberagoa** izan zela nirekin. Ander Irizar

2 (adizlagun gisa)

Almuedanoak agiraka egingo die, **errukibera**, betazalak astun eta oraindik lo dauden horiei, Otoitza loa baino hobea da. Jon Alonso

Beti oroituko naiz bizkarra makurturik nola biltzen zituen geletan gure arropa barreiatuak eta haurren zapatak, xalotasun apalaren keinuz, **errukibera**, eraman onean. Fernando Rey

Errukibera, konplizitate-keinu bat begietan, zutitzeko agindu dizu. Rafa Egiguren

---

errukietxe ik **erruki 5**.

---

errukigabe **1** *izond* errukirik erakusten ez duena.

Ene, zu bai emakume **errukigabea**! Lopez de Arana

Han, polizia **errukigaberen** batek ontzira igotzea galaraziko zion indarrez. Karlos Zabala

Harryk kontuan hartu ez zuena zen etxean bertan zeukala arerioa, erasotzerakoan tentelkeriatan ibiltzen ez zen harrapatzaile **errukigabea**. Jon Arretxe

Agiraka egiten duen aitak bezala probatu zenituen zeuretarrak, baina errege **errukigabeak** bezala aztertu eta kondenatu zenituen besteak. Elizen arteko biblia

Administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz **errukigabea**, aberats okitua, burokrata grisa. Jose Morales

Ez duela sinesten zuzentzaile gizajo eta babesgabe batez modu honetan trufatzeko moduko jende **errukigabea** egon daitekeen. Jon Alonso

Grina ikaragarri **errukigabe** horixe zuten bihotzean. Josu Zabaleta

2 (gauzei buruz)

Goiti zoazte, izerditan, gainean daramazuenaren eta eguzki **errukigabearen** kariaz. Xabier Montoia

Haize gordin **errukigabea** zebilen, eta bihotza, berriz, errezeloz betea nuen dagoeneko. Irene Aldasoro

Bizitza zaila da, **errukigabea** sarritan, baina ederra ere bai. Berria - Kultura

Zahartasuna baino errukiorragoa duzue hilobia bera; hilobian, behinik behin, hau idatziko dute: "Hemen gizaki bat datza"; zahartasun **errukigabearen** hazpegi hotz eta ankerretan, ordea, ez duzue deus irakurriko. Ez zen ausartu "ondo lo egin" esaten ere, ez zuen indarrik bere menpekotasunei traba jartzen zien masa **errukigabe** haren kontra egiteko. Jose Morales

Gudu **errukigabea** berriro gurera iritsia zela garbi zegoen. Txillardegi

Halaxe egokitu zitzaion Azpilgo herriari ere, izua eta zapalkuntza nagusitu zirenean bertan, don Paulinoren sermoi sutsu bezain **errukigabeak** oinarri. Joan Mari Irigoien

Bere iritzia **errukigabea** da. Iñaki Mendiguren

Japonian, ordea, kristautasun erromatar katolikoaren zapalkuntza berehalakoa eta **errukigabea** izan zen. Iñaki Mendiguren

3 (adizlagun gisa)

Bere geziez josi nau, **errukigabe** zulatu dit gorputza eta lurrera isuri nire odola. Elizen arteko biblia

Gauean eguraldia aldatu egin zen, eta euriz zamatutako haizeak jo zuen mendebaldetik, hotz eta **errukigabe**. ez nuke nahi nire gurasoak hutsaren hurrengoa direla pentsa dezazuen, edo nirekin **errukigabe** jokatzen dutela. Agustin Otsoa

Biztanleriaren arazoa ez zen Txinan Japonian bezain presa handiz agertu, ezta hain **errukigabe** tratatu ere. Iñaki Mendiguren

"Lintxamendu mediatikoa" deitzen diogu hedabideek, gizabanakoa dagoen tokian dagoela atxilotu, epaitu gabe biluzik paseatu, eta iritzi publikoaren aurrean gatibu hartuta, **errukigabe** larrutzen dutenean. Iñigo Aranbarri

Gauzei buruz **errukigabe** kritikoa, teoriarentzat tokirik ez duena, gauzak diren bezalaxe kontatuko dituena. Pablo Sastre

4 ***errukigabeko*** *izlag* errukirik ez duena, erruki gabekoa.

Errukigabeko jarraipen baten aztaparretan nintzen, nahi banuen egoera jasangarria bilaka zedin. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errukigabea da (3); **eta errukigabe** (3)

---

errukigabetasun *iz* errukigabea denaren nolakotsuna.

Ez omen dago horretan **errukigabetasunik**; «80 urteko emakume bat supermerkatu bateko ilaran aurrekoen txanda nola hartzen saiatzen den ikustea atsegin dut, besterik gabe». Berria - Kultura

---

errukigarri **1** *izond* errukia merezi duena.

Erduan, gizon **errukigarri** bat bihurtzen nintzen, aldamenean beste pertsona **errukigarri** bat zuena. Joan Mari Irigoien

Haren azkena hurbiltzean, Jaun **errukiorrak** atsekabe eta tentaldi guztietatik aterako du. Askoren artean

Seme-alabek txandan-txandan aldi baterako etxean hartzen duten atso zahar **errukigarri** baten gisa dabil gaur behiala hain eder izandako dama hura: iragana beste etorkizunik gabe. Joxerra Garzia

Ez zen oker bat izan, moztu zuen zuzendari literarioak, ez du merezi esku **errukior** hori Silva jaunarengan luzatzea. Jon Alonso

Serranoko hotelean gertaturiko eszena **errukigarriaren** lekuko izateak ez zidala gauzak bideratzeko esperantzarik kentzen. Ramon Saizarbitoria

Alkid, begiak itxirik eta ahoa zabal-zabalik, modurik **errukigarrienean** negar-garrasika hasteko zorian zegoen. Jose Morales

Zeinen sinesgaizki tristea den dena: galitziar aberetu eta **errukigarriok**, sinagogen hondakinok, bizitza doilor hau, gertakari izugarriak inon, zeinen isla baizik ez dugun ikusten. Pablo Sastre

Zeinen **errukigarriak** ziren biak, Flora eta bera alegia, patuak ni bezalako alfer bat sartu zielako etxean. Ramon Saizarbitoria

2 (adizlagun gisa)

Baita gizon haren aurrean **errukigarri** azaldu nahi nuelako ere. Ramon Saizarbitoria

Bere burua engainatzen duen gizakia **errukigarri** azaldu behar zaigu; eta besteak engainatzen dituena gaitzesgarri. Imanol Unzurrunzaga

Besoa moztu zioten Tarazonakoari, eskua mozterakoan, eta joan ziren begibakarra **errukigarri** eta hiltzori utzirik. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errukigarri bat (3)

---

errukimendu *iz* errukia.

Gu urrun edukitzeko gizakiak gara, osterantzean instinto arriskutsuak sorrarazten ditugu, **errukimendua**, elkartasuna, eta batzuetan kondenatua ez izanaren lotsa, nik zurekin batera torturatua ez izanarena ezagutu dudan legez. Koldo Izagirre

---

errukin *iz* errukigarria.

Eta atseginik gabe bizi izan den **errukina**, ai!, ordainik gabe hilko da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

errukior **1** *izond/iz* errukia erakusteko joera duena. ik **urrikalkor**.

Jainko ahalguztidun, Salbatzaile **errukiorra**. Askoren artean

Jainko **errukiorrari** bedeinkapen-kanta. Elizen arteko biblia

Otoitza egin orduko, Maria Birjina **errukiorrak** entzun egin zion, eta hara non agertu zitzaion zeruetako Erregina bere Semetxo bedeinkatua besoetan zuela, argi txit distiratsuz inguratua. Askoren artean

Ongia bere izaeraren eskuzabaltasunagatik eta jaiotzetiko ontasunagatik egiten duen gizon ongile eta **errukiorraren** antzekoa da. Xabier Kintana

Herrian beti izaten ziren emakume aberats eta **errukiorrak**, haurra bataiatu eta besoetan eraman nahi zutenak. Gotzon Garate

Burua makurtu eta bi hatz **errukiorrez** haztatu zuen kalparreko ile urria. Irene Aldasoro

Agureak, samintasunezko begirada **errukiorra** egotzi, eta esan zuen: [...]. Jose Morales

Putaseme honek bere alderdi **errukiorra** erakutsi nahi zidak. Rafa Egiguren

Errukiorrak lagun hurkoari maileguz ematen dio, laguntzeko eskua luzatzen dionak agindua betetzen. Elizen arteko biblia

2 (izan aditzarekin)

Ez diot Brunori pentsatu berri dudana kontatzen, berak jendearen jarrera "txintxo" eta ergel horri bakarrik erreparatzen baitio, hots, jendeak **errukior** izateari ateratzen dion abantailari. Bernardo Atxaga

Izan zaitez **errukiorra**; hori baita adiskidantzaren ezaugarririk ederrena. Jon Muñoz

Laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo diot, **errukiorra** bainaiz ni. Elizen arteko biblia

Izan zaitezte denok gogo eta sentiera bateko, elkarren senide on, **errukior** eta apal. Elizen arteko biblia

Bihozbera eta **errukiorra** da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea. Elizen arteko biblia

Izateko, beraz, **errukiorrak** gurekin, ez genuela-eta deus egin. Pello Lizarralde

3 (adizlagun gisa)

Albak nola hartuko zuen ez bazekien ere, ziur zegoen **errukior** jokatuko zuela, hiltzaile bat maite zuela ohartu arren. "Gutun asko idazten al dituzu, Tansley jauna?" galdetu zuen Ramsay andreak, **errukior**, orduan ere, Lilyren ustez. Aritz Gorrotxategi

Lepoa tenteturik, nebari begiratu zion, **errukior**. Anjel Lertxundi

-Zeruan gerta dadila -esan zuen izebak **errukior**. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bihozbera eta errukiorra (13); **errukior eta** (13); **errukior eta bihozbera** (3); **errukiorra da** (3); **errukiorra eta** (4); **eta errukiorra** (15); **eta errukiorrak** (3); **jainko jaun errukiorra** (3); **jaun errukiorra** (4); **jaun errukiorrak** (3)

---

errukita *adlag* errukituta.

Gryffindorreko beste kideak hain zeuden lur jota eta **errukita** Weasleytarrengatik, ezen inork ez baitzien eragotzi altxatu, gela zeharkatu eta erretratu-zulotik joan zirenean. Iñaki Mendiguren

---

errukitasun *iz* errukia.

Debozioz eta esker onez, probidentziaren **errukitasun** mugagabea ezagutzen zuen orduan, esker-mezak atera, eta berriro ekiten zion bere bizimodu barreiatuari. Jose Morales

---

errukitsu **1** *izond* erruzkiz betea.

Jainko **errukitsuak** bere onberatasunean eman dizkidan dohainen artean, hauxe da bat. Iñaki Iñurrieta

Apalki eskatzen zuen Jainko onberak, Aita **errukitsu** eta kontsolamendu ororen iturri den Jainkoak, bere nahia ager ziezaiola. Askoren artean

Lapur **errukitsu** modura portatu dituk enekin. Juan Garzia

Badirudi, Karlomagnoren eta Luis **Errukitsuaren** testamentuen arabera, frankoek erregeen semeen artean aukeratzen zutela erregea. Iñaki Iñurrieta

Ederra, bere gizatasun **errukitsuan**; izugarria, bere exijentzia erradikalean. Herria

Ardura **errukitsuz** sortu eta erruki arduratsuz zaindu. Askoren artean

Horrelako errai **errukitsuak** zituen behartsuenganako, horrelako sentimenduekin jarraitzen zien Kristo pobrearen oinatzei. Askoren artean

Argi nazazu, maisu txit zuhur eta artzain txit **errukitsu** horrek. Askoren artean

Bigarren mailako poeta baten biografia **errukitsu** bat ere idatzi zuen. Juan Garzia

Elkartasun **errukitsu** eta lehiakor hau mundu osoan ikustea gustatuko litzaidake. Berria - Harian

Horiek berak erantzi nizkion, hiru egun lehenago, bere gorputza mihise **errukitsu** batez estali aitzin. Aingeru Epaltza

Adierazi nahi genuke Brown jauna errugabea zela, ez zela inpostore bat, eta, beraz, bere burua defendatzeko gezur **errukitsu** batzuk asmatu behar izan zituela ezinbestean. Karlos Linazasoro

Behin hilez gero, ez da faltako barandatik behera botako nauen esku **errukitsurik**. Juan Garzia

2 (izan aditzarekin)

Epai ezazue zuzentasunez, izan on eta **errukitsu**. Elizen arteko biblia

Mundua ez da **errukitsua**. Berria - Kultura

Zeren errukirik izan ez duenak errukirik gabeko epaia izango baitu; **errukitsu** izan dena, ordea, garaile aterako da auzian. Elizen arteko biblia

Zintzoa beti da **errukitsu** eta eskuzabal, bedeinkatuak dira haren seme-alabak. Elizen arteko biblia

Handia zarelako eta guztiz **errukitsua**, askatu egin nauzu irensteko prest zeudenen hozkadetatik. Elizen arteko biblia

Utzi zeure bekatuak zuzenbide eginez, uko egin gaiztakeriari, behartsuekin **errukitsu** izanez. Elizen arteko biblia

Baina Jainkoak, hain baita **errukitsua** eta halako maitasun neurrigabez maitatu baikaitu, [...]. Elizen arteko biblia

Jainkoari emandako gizonak ziren, aingeruentzat atsegin eta gizakientzat maitagarri; latzak beren buruarekin, besteekin **errukitsuak**. Askoren artean

3 (adizlagun gisa)

Jainkoari eskerrak eman zizkioten, **errukitsu** agertu zitzaielako eta pobreen oihua entzun zuelako. Askoren artean

Hegal hauen lumak **errukitsu** salbatzen duen Aitarenganako maitasuna eta gogor epaitzen duen Jaunaganako beldurra dira. Askoren artean

Beren artean marmarka heldu ziren atorradunak, ahopean **errukitsu** mintzatuaz. Patxi Ezkiaga

Bere burua zeharo mespretxatzearren, legendunei on egiten zien **errukitsu**, bere zerbitzu apal eta gizatasunezkoak eskainiz. Askoren artean

Maitagarria zara gero -gehitu zuen bizi-bizi, erdeinu izpi batez eta **errukitsu**. Ander Irizar

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita errukitsu (6); **aita errukitsu eta** (4); **aita errukitsua** (4); **aita errukitsuak** (4); **aita errukitsuaren** (3); **errukitsu bat** (3); **errukitsu eta** (9); **errukitsu eta kontsolamendu** (3); **errukitsua eta** (3); **errukitsuak bere** (5); **errukitsuari bere** (4); **eta errukitsu** (7); **eta errukitsua** (6); **jainko errukitsu** (3); **jainko errukitsua** (3); **jainko errukitsuak** (4); **luis errukitsua** (3); **luis errukitsuak** (14); **luis errukitsuaren** (18); **luis errukitsuaren bizitza** (3); **luis errukitsuari** (3)

---

errukitu, erruki(tu), errukitzen **1** da *ad* erruki izan, errukia erakutsi.

Goretsia betierean bizi den Jainkoa! Goretsia beraren erregetza! Berak du zigortzen eta bera da **errukitzen**. Elizen arteko biblia

Akabo da Hester gaixoarekikoa - **errukitu** zen Nora-. Anjel Lertxundi

Denak **errukitzen** dira itsuez. Gotzon Garate

Errukitu zen Jauna lurralde hartaz eta urrundu egin zuen izurritea Israelengandik. Elizen arteko biblia

-Zutaz **errukitu** nintzen lehengo batean; espetxea merezi zenuen, baina hirian gelditzeko baimena eman nizun. Jose Morales

Bi malko isurtzeko adina gizontasunik atera nuen nonbaitetik eta, inoiz ez bezala, **errukitu** egin nintzen nire buruaz. Hasier Etxeberria

Jende xehea zapaltzen duenak irain egiten dio Egileari, behartsuaz **errukitzen** denak ohore ematen. Elizen arteko biblia

Nitaz **errukitu** egin zen Jainkoa, neure sinesgabean ez bainekien zer egiten ari nintzen. Elizen arteko biblia

Izan ere, Frantziskok, haietaz **errukiturik**, ez zien epaileak bezala hitz egiten, aitak seme-alabei eta sendagileak gaixoari bezala baizik. Askoren artean

Aita txit santua, zu beti zeunden prest zeure seme bekatariez **errukitzeko** eta haien hutsegiteak onginahiz barkatzeko! Askoren artean

Errukitu zen Jauna lurralde hartaz eta urrundu egin zuen izurritea Israelengandik. Elizen arteko biblia

Otoitz egin eta eska diezaiogun Jaunari, gutaz **errukitu** eta bere babesa eman diezagula. Jose Antonio Mujika

Zorionekoa dohakabeez **errukitzen** dena! Elizen arteko biblia

Ez da **errukitzen** ondoezik dagoenaz, baina ez luke lintxamendu batean parte hartuko. Bernardo Atxaga

Barne-muinetaraino hunkitu eta **errukiturik**, malkoak isuri zituen Antiokok. Elizen arteko biblia

Harry erabat **errukiturik** zegoen Nevilleren egoeraz eta ez zen berehala konturatu berak ere bazuela eskutitz bat. Iñaki Mendiguren

Ez du inork jakingo toki hori non den, harik eta Jainkoak, **errukiturik**, bere herria bil dezan arte. Elizen arteko biblia

2 (nor-nori aditzekin)

Eta, Lot zalantzan zegoela ikusirik, eskutik hartu zituzten bera, emaztea eta alaba biak, Jauna **errukitu** baitzitzaien; handik atera eta hiritik kanpora eraman zituzten. Jose Antonio Mujika

Eutsi diezaiogun beste bost egunez eta bitartean Jauna, gure Jainkoa, **errukituko** zaigu berriro, ez baikaitu betiko utziko. Elizen arteko biblia

Haiek **errukitu** egin zitzaizkion. Juan Garzia

Jainkoa **errukituko** zaizula uste al duzu? Arantxa Iturbe

Ministroa **errukitu** egin zitzaion eta bere jauregian hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Ez zezala pentsa ezaguna ninduelako **errukituko** nintzaionik. Anjel Lertxundi

Behartsuak ere bihotz-bihotzetik maite zituen eta barru-barrutik **errukitzen** zitzaien; eta guztien menpeko agertzen zen. Askoren artean

Xehatua gelditu da Ninive; nor **errukituko** zaio? Elizen arteko biblia

Zuetarik bat ere ez zait **errukitu**, inork ez dit jakinarazi nire semeak nire aurka zelatan jarri zuela nire morroi bat. Elizen arteko biblia

Jainkoa **errukitu** zitzaiola eta begiak zabaldu zizkiola zioen Tobitek denen aurrean. Elizen arteko biblia

Barru gupidabera emango diot eta **errukitu** egingo zaizue, eta zeuen herrialdean bizitzen utziko. Elizen arteko biblia

Jauna **errukitu** egin zitzaien eta gupidatu, eta barkatu egin zien, Abraham, Isaak eta Jakobekin egina zuen itunarengatik. Elizen arteko biblia

3 (era burutua izenondo gisa)

Ondorengoan, Aitor Renteriaren kronika, Hendaian ikusita bezalaxe kontatua, subjektiboa, humanoa, **errukitua**: [...]. Iñigo Aranbarri

Gaixoekin izandako hainbat urtetako esperientziaren ondoren, bai bainekien errukia bertute bat dela, errukitzaileak maiz ezkutatu eta mozorrotu beharrekoa, **errukituari** apalgarri eta iraingarri gerta ez dakion. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina errukitu (6); **baina errukitu egin** (5); **errukitu egin** (36); **errukitu egin naiz** (3); **errukitu egin nintzen** (3); **errukitu egin zen** (13); **errukitu egin zitzaien** (5); **errukitu egin zitzaion** (5); **errukitu egingo** (6); **errukitu egiten** (5); **errukitu eta** (18); **errukitu nintzen** (4); **errukitu zen** (10); **errukituta bezala** (3); **eta errukitu** (6); **eta errukitu egin** (3); **eta errukituko** (3); **gutaz errukitu** (3); **haietaz errukiturik** (3); **hartaz errukitu** (4); **hartaz errukiturik** (5); **jainkoa errukitu** (4); **jainkoa errukituko** (3); **jauna errukitu** (3); **nitaz errukitu** (6); **nitaz errukitu eta** (3); **zutaz errukitu** (5)

---

errukitzaile *izond/iz* errukitzen dena.

Gaixoekin izandako hainbat urtetako esperientziaren ondoren, bai bainekien errukia bertute bat dela, **errukitzaileak** maiz ezkutatu eta mozorrotu beharrekoa, errukituari apalgarri eta iraingarri gerta ez dakion. Joan Mari Irigoien

---

errukizko ik **erruki 4**.

---

errule[1] *izond/iz* erruten duena.

Oiloak topatu ditut, horretara, builaka; **erruleak**, eta berauen arrautza freskoak, zumezko saskitan ikusgarri. Txillardegi

Erremedioak bilatzeko orduan, denetik balioko zuen: bazen burdin puska bat oilo **errulearen** ondoan ipintzen zuenik, habiaren ondoan aizkora uzten zuenik ere bai. Pello Zabala

· Martxoko oilandak ere hobeak, arrautza-**erruleago**. Pello Zabala

---

errule[2] *izond* erruduna.

Hemen ez dugu errugabekorik onartzen, hemen denok izan behar dugu **errule**, hemen Etxeberria ez dena Larrinaga da, Lapurdin jaioak gara guztiok. Koldo Izagirre

---

erruleta *iz* zorizko jokoa, horizontalean biratzen den gurpil batean jokatzen dena.

Areago bizkortu zuen Maxek abiada: gorria, beltza, **erruletan** bezala. Jon Muñoz

Halako batean, funtsak kasinoaren **erruletan** gorriaren alde egin eta beltz atera zen: LTCM erraldoiak errubloari botatako trabesa galdu egin zuen, eta funtsak porrot egin zuen. Iñaki Heras

Erruletako bolari nola, halatsu begiratu zion adiskideari. Patxi Zubizarreta

Errusiar **erruletan** jokatzen ari dira, eta azken bi jardunaldietan galtzen duena eroriko da behera. Berria - Kirola

Eguzkik salatu duenez, Garoñak zabalik jarraitzea «errusiar **erruletan**» jokatzea da. Berria - Euskal Herria

---

errulo *iz* zilindro txiki zuloduna, ilea kizkurtzeko erabiltzen dena.

Burua, ordurako **errulorik** gabea, indarrez inarrosi eta gaztaina argi-koloreko izur berriak orraztu zituen. Lopez de Arana

Bizkor mugitu zituen **erruloak** eskarmentu handiko hatz haiekin, eta kopetaren gainera erortzen zitzaizkion ileak alboratu egin zituen belarri atzean kateatzeraino. gogoratzen dut askotan neke aurpegia izaten zuela baina nola zen gai, **errulo** batzuk jarrita, biharamun goizean, iluntzeko aurpegi maskala kolorezko bihurtzeko. Aritz Gorrotxategi

Erruloz beteriko buru bat ageri zen atetik, dortoka batena irudi. Lopez de Arana

---

errumaniar *(orobat **errumaniatar** g.er.)* **1** *izlag/iz* Errumaniakoa, Errumaniari dagokiona; Errumaniako biztanlea.

Demetrio Cantemir, **errumaniar** handiki kristau ortodoxoa, Ateak Moldaviako printze izendatu K.o. 1710ean eta hurrengo urtean errusiarren aldera desertatu zuena. Iñaki Mendiguren

Tonita **errumaniarrak** ez du jokatuko, eta ez da ordezkoen eserlekuan egongo ere. Berria - Kirola

Danubiar printzerrietako **errumaniar** jendeak. Iñaki Mendiguren

Honez gero, "Nicolae" hartz **errumaniarrak** buruz dakizki Arango eta Alta Ribagorçako mendi-pistak, Jean Françoisen Lada zaharrari uztartutako atoian. Aingeru Epaltza

Ez dakit inork gogoan izango dituen Josef Duvrescu idazle **errumaniarraren** pozoitzearen ingurukoak. Iban Zaldua

Kamioilari turkiarra da mundua zabaltzen digun pertsonaia, izen **errumaniarrak** eta hungariarrak nahasten diren anabasa horretan. Berria - Kultura

Pisu-jaurtitzaile edo agian mailu-jaurtitzaile **errumaniarraren** itxurakoa. Jon Alonso

Zalantzarik gabe esan zuen Romanek "italiarra" zela, baina Matiasek entzundako beste bertsio askotan **errumaniarra** zen pertsona hori, eta gutxi batzuetan poloniarra. Unai Elorriaga

Ionut Georgescu eskuin hegaleko **errumaniarra** fitxatu du Bidasoak. Berria - Kirola

Fanarioten "Ideia Handiaren" porrotak adierazten zuen populazio kristau ortodoxo multinazionalak Otomandar Inperioan [...] hainbat parroki estatutan (greziar, **errumaniar**, serbiar, bulgariar, albaniar eta georgiarrean) banatu beharko zuela. Iñaki Mendiguren

Atxilotuek ustez emakume **errumaniarrak** prostituitzera behartzen zituzten. Berria - Euskal Herria

Sortzez, **errumaniarra**. Berria - Harian

Basaurin herenegun atxilotu zuten gizonezkoak 32 urte ditu, eta **errumaniarra** da jaiotzez. Berria - Euskal Herria

2 errumaniera.

Obra hau hogoi hizkuntzetan aurki ditaike beraz gaur, eta gerorat, **errumaniarrez**, hindiz eta Italiako friuleraz ere plazaratua beharra omen da. Herria

---

errumaniatar ik **errumaniar**.

---

errumaniera *iz* Errumanian mintztzen den latin hizkuntza.

Gurasoekin **errumanieraz** egiten dute, baina bestela neskatoek euskaraz egiten dute. Berria - Harian

Steaua (izarra, **errumanieraz**) Ceaucescuren jostailua zen, ukiezina. Berria - Kirola

Hala gertatu zen, hain zuzen, **errumanierarekin**: **errumanierak** galdu zituen latindar hiztunekin zituen harremanak, eslabiar herriak erdian ezarri zirelako. Isabel Arrigain

---

errumatisma *iz ipar* erreuma.

Bi eritasun mota artatzen dira hor nagusiki: **errumatismak** eta hats-nekeak. Herria

Beharrik gure adinean ez baitugu oraino **errumatismarik**! Janbattitt Dirassar

Ni eta ni bezalako bekatoros handiek ginaukan egoera tzar horrekin estakuru ederra iganderoko mezarat ez agertzeko; galeria bat eskas, denentzat jartzeko lekurik ez, eta **errumatismengatik** xutik egoitea dorpeegi. Herria

---

errumes ik **erromes**.

---

errumeskeria *iz* pobretasuna.

Eta horregatik nagok **errumeskeria** honetan sartua. Joan Mari Irigoien

---

errun[1] *iz*

Errunak: germaniarren idazkera zaharrenaren zeinu edo karaktereak dira, XIV-XV. mendera arte erabiliak. Iñaki Mendiguren

Aritmomantzia, Izaki Magikoen Zainketa, Igarpena, Antzinako **Errunen** Ikasketa, Muggle Ikasketak... eta bestelako gaiei buruzko liburuak dira hauek. Iñaki Mendiguren

Egileek lauahazka zihoazen zaldizkoak marraztu zituzten ahokotik pabiloira kiribilean zihoan lerroan, eta baita bertute handiko **errunak** ere. Agustin Otsoa

Presaka jaitsi erdi hutsik zegoen Gryffindorreko egongelara eta Hermionerekin elkartu ziren han; bakarrik zegoen, *Antzinako* ***errunak*** *era ulerterrazean* liburua irakurtzen. Iñaki Mendiguren

---

errun[2], erruten du *ad* animalia batek, eskuarki hegazti batek, arrautza egin.

Libre egonez gero, oiloek edozein tokitan **erruten** dute. Gotzon Garate

Ez da harritzekoa, ba, izokinak **erruten** diren uretan, landareak bere gaiak libratu izana. Hasier Etxeberria

Antza denez, Anconan, apaizak bedeinkatutako oilo batek oso arrautza arraroa **errun** omen zuen: ikur sakratua zeukan erliebean marraztua. Koldo Biguri

Goizean, meza eman eta gero, oilategira sartu zen arrautza freskoa jateko gogoa sartu zitzaiolako, eta oilo beltzak bat **errun** berria zuen. Koldo Biguri

Antzinakoek basiliskoaren existentziari buruz eman dituzten adina lekukotasun ez dute beste ezeri buruz eman, baina oilarrek arrautzak **erruteari** utzi zioten. Xabier Olarra

Etxeetako teilatuetatik txolarre mordoa ekarrarazi zuen, eta agindu zien birigarroen habia zaharretan arrautzak **erruteko**, eta gero dama gazteei bidali zizkien kumeak, zin eginez birigarro-kumeak zirela! Julen Gabiria

---

errunaldi *iz* erruten den aldia.

Otsail edo martxo aldera **errunaldia** gertatzen da, eta uztailaren bukaeran habia uzten dute amiamokoek, neguan itzultzeko. Berria - Euskal Herria

Tximeletek izaten dute kalte gehien, haien hegaldia, migrazioa, ikusmena, dispertsioa, estalketa, **errunaldia** eta elikadura baldintzatzen baitute. Berria - Gaiak

Askotan, hirietako hondartzak hautatzen dituzte **errunaldirako**, baina habia ezartzeko orduan, argiarengandik babesturiko lekuak hobesten dituzte. Berria - Gaiak

---

errunba ik **rumba**.

---

errunbo *iz* norabidea, norakoa.

Galdera guti batzuk egin zizkidan nire kontakizunaren **errunboa** zuzentzeko, erne jarraitu zuen berbaldia. Koldo Izagirre

---

erruniko *izond* antzinako eskandinaviarren ikur grafikoei dagokiena. ik**errun**[1].

Beste idazkera **erruniko** bat? Iñaki Iñurrieta

A: lehenengo bokala da, alfabeto guztietako lehenengo letra; amhareran edo abisinieran, berriz, hamahirugarren letra da, eta **errunikoan** hamargarrena. Lopez de Arana

Lepoko SS **errunikoek** eta kapeletako zilarrezko burezurrek distira makurrak zabaltzen zituzten kriptako erditzaletan. Alberto Ladron Arana

---

errunka *iz ipar* lerroa, zerrenda.

Holako jendetze baten artean bizi naizelarik, horien kalitate onak ikusiz, ez dut onartzen batek jende guziak **errunka** berean ezar ditzan. Herria

Elisabeth Bichier serora sainduen **errunkan** eman zuen Pio XII-garrenak, 1947ko uztailaren 6-an, Michel Garikoitz-ekin batean. Herria

Erran behar da luzaidarrak ez zirela haren alde joan, baina liberalen alderdiari finki lotu, Aguirre-tiarrak lehen **errunkan**, kasik Nafarroa guzia karlista zelarik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Errunkan emanak ziren, Donetx apeza haien artean, bere sotana luzean... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

errupestre *izond* margolanez mintzatuz, haitzuloetan egiten dena.

Zer dun hori, pintura **errupestre** bat? Pablo Sastre

---

errupia *(orobat **rupia**) iz* Indiako diru unitatea.

Ostatura bueltatu, motxila eta gainerako zorroak hartu, eta mesedez taxi bati telefonoz deitzeko eskatu zion ostalariari, **errupia** batzuk emanez. Xabier Montoia

Diru ahulenen erorikoak (bath thailandiarra, **errupia** indonesiarra, ringgit malaysiarra...), izan ere, eskualdeko beste diruen apreziazio erreala esan nahi zuen. Koro Navarro

---

errural *izond* landari, baserriari dagokiona.

«Distantzia bikoitza» deritzo Bourdieuk bere gizartearekiko kokapen horri: hau da, bere jatorrizko Bearno **erruralean** funtzionario txiki baten seme izateak baserritarren komunitatetik at uzten zuen, eta jatorri **erruralak**, berriz, burges seme paristarren mendean zegoen mundu intelektualean beti arrotz sentiarazi zuen. Berria - Kultura

---

errusiar 1 *izond* Errusiakoa, Errusiari dagokiona; Errusiako biztanlea. ik**erruso**.

Errusieraren aipuak berez dakar hasierako hitzetara hemengo komunitate **errusiarra** kexu omen dela, bart Carlos Casares idazleari haietako batzuk adierazi ziotenez. Edorta Jimenez

Baziren emakume **errusiarrak**, marta larruzko berokietan sartuak, zetazko zapi ñabarra buruan. Felipe Juaristi

Lehengoagandik sortua -nola sortzen den panpina **errusiarra** aurrekoaren barrutik- baina desberdina. Bernardo Atxaga

Hiru hilabete geroago, aitaren irrati **errusiarrean**, anaiaren ahotsa entzun genuen, emozioz beterik: [...]. Juan Kruz Igerabide

Parisen txano **errusiarrak**, kabiarra, eta Michel eta Nadia izenak moda-modan jarri ziren. Karlos Zabala

Bazen non zer hauta: menestra edo arroza lehenbizikoz, albondigak edo xerra **errusiarrak** bigarrenez. Aingeru Epaltza

Labana ingeles eta su-izkilu **errusiarrak**. Xabier Olarra

Niri izugarri gustatzen zait Txekhov: idazle **errusiarren** artean, bera dut maiteen -jarraitu du berak-.1952an **errusiar** ez ziren herri kristau ortodoxo haietako gehienak Errusiaren kontrol militar eta politikoaren mende zeuden benetan. Iban Zaldua

L. M. Vinogradov **errusiarrak** frogatu zuen 314348907tik gorako zenbaki oso bakoiti oro hiru zenbaki lehenen batura dela. Jon Muñoz

Bere patuaren erruleta **errusiarrari** distira ateratzen, maite nau ez nau maite. Harkaitz Cano

Errusian baleude bezala saiatzen ziren bizitzen, baina beren buruak engainatzen zituzten, zapaltzen zuten lurra ez baitzen **errusiarra**, arnasaz hartzen zuten airea ez baitzen **errusiarra**, edaten zuten ura ez baitzen **errusiarra**. Felipe Juaristi

Hantxe omen dauzka lana eta neskalaguna, **errusiarra**, ilehoria, berari gustatzen zaion itxurakoa. Jon Arretxe

Egoera honetan, Hindu Gizarteko brahman eta banya kastek, beren artean, arrakastaz jokatu zuten hindu-historian, greziar fanariotek historia kristau ortodoxo ez-**errusiarrean** saiatu eta huts egindako papera. Iñaki Mendiguren

2 (izenlagun gisa)

Artean kristautasun ortodoxoa baitzen **errusiar** estatuan ezarritako erlijioa, eta "eslaviera zaharra" dialektoa, liturgi hizkuntza komuna **errusiar**, errumaniar, bulgariar eta serbiar eliza ortodoxoetan. Iñaki Mendiguren

Italiar mafiaren deskalabroaren ondoren, **errusiarra** omen da gaur egun indartsuena. Harkaitz Cano

Beren erlijio-hazkurri tradizionalaz gabeturiko **errusiar** arimetan. Iñaki Mendiguren

Errusiar agintepeko estatuetan, ordea, garbi zegoen **errusiar** boterearen zeharkako ezarpena ere higuingarria zela guztientzat, komunisten gutxiengo txiki batentzat izan ezik. Iñaki Mendiguren

Ukaezina zen **errusiar** sentimendu eta pentsamenduan Mendebaldearen aurkako joera biziki areagotzea izan zela Errusian 1917an izandako Iraultza Komunistaren ondorioetako bat. Iñaki Mendiguren

3 (izen gisa)

munduan nor zen nor erakutsi nahian edo, **errusiarrek** gizon bat bidali zuten espaziora ontzi txiki batean. Pello Salaburu

Urte horretan, esate baterako, munduan nor zen nor erakutsi nahian edo, **errusiarrek** gizon bat bidali zuten espaziora ontzi txiki batean. Pello Salaburu

Iritsi zen Samarkanda hirira eta han Txina urrunetik zeta garraio zetozen karabana batekin **errusiarren** lurretaraino joan zen itzuliko bidea hartuz. Felipe Juaristi

Errusiarraren arimak joera bizia baitu zorabiatzeraino jira-biraka ibiltzeko eta neurririk gabe jostatzeko. Jose Morales

Lehen tomo hori lurrikara baten antzekoa izan zen, bortizki inarrosi zuen **errusiarren** gogoa, ordu arte sekula ez baitzen idatzi Errusiako gizartearen hain kritika zorrotz, gordin eta mingarririk. Jose Morales

Errusiar eta turkiarren artean 1877-8an izandako gerraren biharamunean. Iñaki Mendiguren

Errusiarrongan gertatu ohi den legez, hala bertuteak nola akatsak oso modu ikusgarrian nahasirik zeuden berarengan. Jose Morales

Hiru **errusiar** eta hiru ingelesen abenturak. Karlos Zabala

Billancourtera joan zen bizitzera, uhinka eta andanaka etorritako **errusiarren** artera, auzune hartara etorritakoak **errusiarrak** baitziren hitzez eta bihotzez, zain eta muinez, baina ez aberriz. Felipe Juaristi

Errusiarra zen, izatez, baina ez zioten errusiar izaera onartu. Felipe Juaristi

4 *iz* errusiera.

Izenaz ezagutzen zituen zerbitzari guztiak eta **errusiarrez** nahiz buhamez osatutako koruko gizon-emakume guztiak. Jose Morales

Minutu batzuk lehenago **errusiarrez** mintzo ez den Frantziako enbaxadorearen ohiko hitzen ostean, Eugeni Educzenco idazlearekin batera argazkia egin genuen lau espainolok. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anastasia myskina errusiarra (4); **ari zen errusiar** (3); **baitzen errusiarra** (4); **bat eta errusiar** (3); **beste errusiar** (3); **bi errusiar** (3); **da errusiarra** (4); **davidenko errusiarra** (4); **errusiar arima** (3); **errusiar asko** (3); **errusiar bat** (23); **errusiar batek** (11); **errusiar baten** (6); **errusiar edo** (3); **errusiar erruletan** (4); **errusiar erruletan jokatzen** (3); **errusiar eta** (11); **errusiar ez** (3); **errusiar ez ziren** (3); **errusiar gazteak** (4); **errusiar hil** (14); **errusiar hil dira** (6); **errusiar idazle** (4); **errusiar inperioak** (3); **errusiar inperioan** (3); **errusiarra ariko** (5); **errusiarra ariko da** (3); **errusiarra da** (7); **errusiarra eta** (18); **errusiarra ez** (5); **errusiarra izan** (6); **errusiarra izan zen** (6); **errusiarra izango** (6); **errusiarra izango du** (3); **errusiarra zela** (4); **errusiarra zen** (4); **eta errusiar** (23); **eta errusiar bat** (3); **ez baitzen errusiarra** (4); **ez errusiar** (4); **idazle errusiarra** (4); **marat safin errusiarra** (3); **maria sharapova errusiarra** (3); **mendeko errusiar** (3); **militar errusiar** (5); **militar errusiar hil** (3); **myskina errusiarra** (4); **nikolai davidenko errusiarra** (3); **safin errusiarra** (3); **sharapova errusiarra** (3); **soldadu errusiar** (12); **soldadu errusiar hil** (8); **zen errusiar** (8); **zen errusiarra** (4); **ziren errusiar** (3); **zuen errusiar** (3)

andreev errusiarrak (3); **baina errusiarrak** (3); **dementieva errusiarrak** (4); **du errusiarrak** (3); **elena dementieva errusiarrak** (4); **erdiko errusiarrak** (3); **errusiarrak dira** (6); **errusiarrak ere** (5); **errusiarrak eta** (20); **errusiarrak eta tatariarrak** (4); **errusiarrak ez** (11); **errusiarrak illes** (3); **errusiarrak illes balears** (3); **errusiarrak irabazi** (7); **errusiarrak irabazi du** (4); **errusiarrak irabazi zuen** (3); **errusiarrak iritsi** (3); **errusiarrak izan** (3); **errusiarrak jokatuko** (3); **errusiarrak jokatuko dute** (3); **errusiarrak ziren** (5); **errusiarraren aurretik** (4); **errusiarraren eta** (4); **eta errusiarrak** (15); **eta errusiarrak ez** (3); **idazle errusiarrak** (3); **idazle errusiarraren** (7); **isinbayeva errusiarrak** (3); **jokalari errusiarrak** (3); **karpets errusiarrak** (3); **marat safin errusiarrak** (5); **mentxov errusiarrak** (3); **safin errusiarrak** (6); **soldadu errusiarrak** (4); **vladimir karpets errusiarrak** (3); **yelena isinbayeva errusiarrak** (3); **ziren errusiarrak** (3); **zuen errusiarrak** (9)

baina errusiarrek (3); **da errusiarron** (3); **edo errusiarren** (4); **erruleta errusiarrean** (6); **erruleta errusiarrean jokatzen** (3); **errusiarrean jokatzen** (3); **errusiarrek eta** (6); **errusiarrek ez** (10); **errusiarrek ez dute** (3); **errusiarrekin batera** (3); **errusiarrekoak dira** (3); **errusiarren aldeko** (3); **errusiarren artean** (4); **errusiarren kontra** (3); **errusiarren menpe** (3); **errusiarren periskopio** (3); **eta errusiarrek** (4); **eta errusiarren** (7); **jatorri errusiarrekoak** (3); **jatorri errusiarrekoak dira** (3); **soldadu errusiarrek** (5); **soldadu errusiarrekin** (3); **soldadu errusiarren** (4); **tropa errusiarrek** (4); **urpekontzi errusiarren** (5); **urpekontzi errusiarren periskopio** (3); **zuten errusiarrek** (3)

---

errusiartu, errusiar(tu), errusiartzen da/du *ad* errusiar bihurtu.

Erresuma hori, Bielorrusia, **errusiartzeko** ahalegina ez sinestekoa da. Edorta Jimenez

Bizargabea eta oso lotsagabea izanik ere, ez zuen aktorea ematen, ezpada atzerritar **errusiartua**, ingelesa. Jose Morales

---

errusiera *iz* Errusiako hizkuntza.

Gure amak bolada bat zeraman **errusiera** ikasten. Fernando Rey

Rigako herritarren %52ren lehen hizkuntza da **errusiera**. Berria - Mundua

Askatasun handiagoa izango dugu *th*-ren aldetik, hots hau ez baitago **errusierak** dituen fonemen sisteman. Isabel Arrigain

Raskolnik: "zismatikoa" esan nahi du **errusieraz**. Jose Morales

Agintariek mitina eta haurrek olerki bakarraren ahapaldi bana eskaini ziguten, **errusieraz**. Edorta Jimenez

Biharamunean, **errusieraz** egiten zuen kaputxadun talde bat Altievoko errefuxiatu gunean sartu zen. Berria - Mundua

Zonalde handi batean **errusieraz** hitz egiten da eta lotura handia dago betidanik bi herrialdeen artean. Berria - Mundua

Polonieraz, **errusieraz** eta esamoldez jositako yiddish batez egiten zuen. Koro Navarro

Errusieraz hitzik ere ez zekien emakume ingeles batek hezi zuen. Jose Morales

Emakume honek ez daki alemanez, **errusieraz** bakarrik daki, eta ez zen gogoratzen bere hotelaren izenaz. Edorta Jimenez

Gizonak irribarretsu jarraitzen zuen: ez zituen Rasputinek **errusieraz** oihukatutako hitzak ulertu. Iban Zaldua

Troika paregabe horrek ezarri zituen **errusierazko** prosa modernoaren oinarri eta zutabeak. Jose Morales

Inoiz ez diezu entzungo **errusierazko** hitz bat bera ere taxuz ahoskaturik. Jose Morales

Era berean, **errusierazko** ikastaro trinkoa ere jasoko du. Berria - Gaiak

Gizon oso jantzia eta argi-argia da, eta hagitz itzulpen politak egiten ditu **errusieratik**. Fernando Rey

Fernando de Rojas juduak idatzitako *Celestina* ari zen **errusierara** itzultzen, eta **errusieratik** herri ipuin bat gaztelerara. Felipe Juaristi

Moskun **errusiera** hutsez mintzatzen zirenean itzulpena eskatzen zen, zergatik ez Berlinen? Edorta Jimenez

Estonian estoniera hiztunak eta **errusiera** hiztunak daude. Edorta Jimenez

Gure amak **errusiera**-eskolez gainera, piano-eskolak ere hartzen zituen. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errusiera bigarren (5); **errusiera bigarren hizkuntz** (3); **errusiera eta** (6); **errusiera hitz** (3); **errusiera hitz egiten** (3); **errusiera hiztunak** (4); **errusiera hori** (3); **errusiera ikasten** (3); **errusieraz eta** (4); **errusieraz hitz** (5); **errusieraz hitz egiten** (3); **errusierazko argitalpenetik** (18); **errusierazko argitalpenetik harturiko** (18); **eta errusiera** (6); **eta errusieraz** (6); **eta errusierazko** (5); **itzultzaileak errusierazko** (18); **itzultzaileak errusierazko argitalpenetik** (18)

---

errusifikazio *iz* errusiartzea.

Batere susmagarria ez den frantsesezko liburu batean (Europako lanpostu lehiaketetan erabiltzen dena) hara zer esaten den: 1945 eta hurrengoak: diktadura estalinista, **errusifikazio** politika eta lehenago 1939-1940: jendetzak Siberiara erbesteratuak. Edorta Jimenez

---

erruso *izond/iz* errusiarra.

Konturatua nintzen, askotan ikusita, taxista **errusoei** ere [...] denboraren pasaerak halain gutxi inporta ziela nola beste etorkin inolako lanik ez zutenei eta aberkide dirudunen limosnatik bizi zirenei. Matías Múgica

7 itsaspekari **erruso** ziren itsas pazifikoan beren batizkafoan preso gertatuak. Herria

Printze **erruso** bati dagozkion bi opariak. Matías Múgica

Nire leihoaren parean Tari-Bari jatetxe **errusoa** zegoen. Matías Múgica

Urpeko nuklear **errusoa** hondatu da goizeko 4 orenetan hango itsasoaren iparrean 170 metrako barnatasunean. Herria

Berehala antz eman nion ez zela **errusoa**, eta hori bera aski izan zen nire hasierako ikara kentzeko eta niregan nolabaiteko harrotasuna pizteko. Matías Múgica

Nola ahantz Katyn-en **Errusoek** egin dituzten barrabaskeriak, nola 1939-an sinatu zuen hitzarmena Hitler-ekin Stalinek, nola partikatu zuten Polonia, nola gerla akabatu eta Sovietar Batasunak bere menpean atxiki zituen Europa Ekialdeko Estatuak. Herria

Hemen dator beraz komunisten planaren bigarren partea: hasiko dira gerran, eta alde batetik etorriko dira milioika **erruso** eta txino [...]; eta nor dago horiei aurre egiteko? Xabier Mendiguren Elizegi

Beldurrik gabe oldartu dira polones langileak, beren langile sindikatak sortuz eta, azkenean, kanporatuz **Errusoen** esku-makilak. Herria

Biharamunean, **errusoen** saunatokia atondu eta probatuko duzue. Joseba Sarrionandia

Erruso zintzoa naiz, Errusiako bazter-une batekoa naizen arren, Volinia-ohian sortua. Matías Múgica

Asko izaten ziren halako **erruso** langabeak Tari-Bari jatetxean. Matías Múgica

2 (izenlagun gisa)

Iragan urteko apirilean, biltzar hortarik kanpo ezarri zituzten arduradunek **erruso** deputatuak. Herria

Erran behar da hauek biek elgar laguntzen dutela, ez guti, Europa Batasunerat biek hurbildu beharrez eta orobat, **erruso** tropak beren lurretik kasatu beharrez, sobietar sistemarekin luzaz sofritu zuten ondoan. Herria

Amerikano kargudun haundi batzuek badaukate **erruso** enpresa batzuek lagundua zutela Saddam Hussein armamendu aitzinatuak fornituz. Herria

· Bazitekeen, epe laburrera, **erruso**-amerikar balantzaren plateretan pisu erabakigarria ez izatea munduko biztanleen hiru laurden horiek. Iñaki Mendiguren

Japonia izan zen errusiarren ahalegin hori sustraitik moztu zuena 1904-5ean **erruso**-japoniar gerra erabakigarrian. Iñaki Mendiguren

1955ean Mendebaldeko Zibilizazioari bloke komunista **erruso**-txinatarretik zetorkion mehatxua nabarmena zen. Iñaki Mendiguren

3 errusiera.

Gure taberna lagunak **errusoz** badaki baina alemana da. Matías Múgica

-Oso ederki ari zara, ba, **errusoz**! Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
errusoen kontra (4); **eta erruso** (3); **eta errusoek** (3); **putin erruso** (5)

---

errusotar ik **errusotiar**.

---

errusotiar *(orobat **errusotar**) izond/iz* errusiarra.

Ukrainian bozak beharrak dituzte bi Viktor en artean, batetik Ianukovich **errusotiarra** eta bestetik Iushtchenko europatiarren adiskidea. Herria

Gisa batez, lehen horiek ardietsi dute Viktor Ianukovitch **errusotiarra**, jukutriaz diotenaz, nausiarazi zuen bozaldiaren desbaliotzea eta parlamentuak deliberatu du bozak berriz eginen direla, hura bera eta, beste Viktor Iushtchenkoren artean. Herria

Ukrainan europatiarren eta **errusotiarren** arteko eztabadak segitzen du aitzina. Herria

---

errutasun *iz* erruduntasuna.

Jarraian esan zuten horregatik erabaki nuela T.-ko liburutegitik gehiago ez irtetea, kontzientziaren zama astunak, **errutasunaren** mamuak, ez zidalako nire herritarrekin bizitzen uzten. Karlos Linazasoro

---

errute *iz* animalia batek, eskuarki hegazti batek, arrautza egitea.

Nolabait ere utzi behar nuen hainbat habiatan **errute** hori. Pello Zabala

---

errutilo *iz* arrain mota, *Ciprinidae* familiakoa.

Nahikoa izan zuten bi tximino lizun eta **errutilo** hegatsgorri kantari bat garbitzearekin, bakea egin zedin. Karlos Linazasoro

---

errutina **1** *iz* pentsatu edo erabaki behar izan gabe modu jakin baten jarduteko ohitura.

Idatziko zuenez, ohitura eta **errutina** ziren «denboraren minbizia». Berria - Kultura

Atseden egunak gure **errutina** apurtu egiten du, eta hori nabaritu egiten du gorputzak. Berria - Kirola

Bizitza betiko martxa hartzen ari da, **errutina** bihurtzen, eguna egunari josiz noizbait eta okerrik gabe heriotzara eramango gaituen bide horretan sarturik ostera. Anjel Lertxundi

Hamar hilabete inguru iraun zuen zorion perfektuak, beste lau urte luzatu zen **errutina**. Anjel Lertxundi

Bulegoa uztea **errutina** uztea bezala izan zunan, agian beste denbora batean sartuko ninduen ohituraren urratzea. Jon Alonso

Egilearen zuzenketak eginik daude, gainerakoa azken zuzenketaren **errutina** baizik ez da, hori zure esku. Jon Alonso

Sinesmena ahitzen denean, maitasuna ere ahitu egiten duk, eta jokabide jakin batzuen **errutina** gelditzen duk, ezer gelditzekotan, maitasuna egon zen tokian. Anjel Lertxundi

Bizitzaren unerik zailenetan bezala, eguneroko jardunaren **errutinan** ere erakusten zuen duintasuna. Berria - Harian

Yassin integratuta zegoen gure **errutinan**. Iban Zaldua

Ez zituen jasaten, ez frustrazioa, ez **errutinaren** nahiz ingurumenaren aldaketak. Xabier Olarra

Gero San Anbrosio izango zena aitaren urratsei jarraitzen ari zen Liguria eta Emilia probintziako gobernadore gisa, K.o. 374an, bere atsekabe handiz, herri-oldarrak eginkizun ofizial ziur baten **errutinatik** atera eta Milango apezpiku-aulkian jarri zuenean, kargua uzteko zain egon gabe. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo edo izenlagunekin)

Hor izango nuen neure proiektua, bila ibilitako zaldi kulunkari txikia, **errutina** sorgorgarriaren nagitasunetik aterako ninduen josteta kuttuna. Oskar Arana

Hasten al ziren horretaz pentsatzen sikiera une batez, alegia, goiune horren ostean sentitzen zutenaz, edota erdietsia ote zuten **errutina** mekanikoaren antzeko zerbait, zeinak ekiditen baitzien geldialdi, oldozte eta, sarritan, abaildura eta barru-hondoratze hori? Joxemari Iturralde

Hau **errutina** hutsa da guretzat. Joxemari Iturralde

Intelektualki ere, erabat antzua bihurtu zitzaidan lana, **errutina** beti berean itota. Joxerra Garzia

Eguneroko **errutina** aspergarri betiberdina hausten duelako bihurtu da kirola hain garrantzitsu gure gizartean. Joxerra Garzia

Ohiko lan bat gehiago iruditu zitzaion, eguneroko **errutinan** kokatu behar zen eginbehar bat, beste bat. Joxemari Iturralde

3 ***errutinazko*** *izlag/izond*

Errutinazko inspekzioa egitera gatoz, jauna. Harkaitz Cano

Armadak esan zuenez, soldaduak **«errutinazko** atxiloketa misioan» zebiltzan, eta ez zuten egoitza ofiziala helburutzat. Berria - Mundua

Pasaportea eskatu ziguten tokietan, poliziek zein ostalariek **errutinazko** arreta eskaini zioten bai amonaren pasaporteari, baita neureari ere. Zeresana bukatu zaiela baina elkarren ondoan segitzen dutela, **errutinazko** mugimenduak errepikatuz, hitzen beharrik gabe. Anjel Lertxundi

Prozesuaren **errutinazko** formulazioak. Iñaki Mendiguren

Eguneroko **errutinazko** eginkizunetan beste ohitura bat sartzea eskatzen duen ariketa bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Irakurleari abisatzen dio: lehenengotan, egiak eta gauzak sineskaitz iruditzen zaizkio, baina, asimilatu ahala, **errutinazko** bihurtzen dira, eguneroko ortziaren urdina bezala. Xabier Amuriza

Mahai gainean utzitako agiriak errepasatzen hasi zen, jardun **errutinazko** batez. Anjel Lertxundi

Haren familia-bizitza **errutinazkoak** lagundu egiten zion baitezpada ugaritasun horretan. Josu Zabaleta

---

errutinatsu *izond* errutinazkoa.

Dokumentazioa erakusteko modu **errutinatsuagatik**, autobusean doazen bidaiariek ezagun dute ohituta daudela polizien presentziara. Anjel Lertxundi

---

errutsu *izond* kementsua, adoretsua.

Erantzuna atzemateko hormari belarria erantsirik, horren ordez gure buruen gainean mahaira eseritako milizianoen kantu pozjario **errutsuak** entzuten genituen: [...]. Juan Garzia

---

erruz *adlag* asko-asko, ugari.

Ongi ordaindutako salatariak ere badituzte, **erruz** zoritxarrez. Txillardegi

Nahiko urriak ziren zure ondasunak ni etorri aurretik; orain, ordea, **erruz** handitu dira nire gidaritzapean. Elizen arteko biblia

Ni etorri aurretik zenituen ondasun pitxarrak **erruz** handitu dira, bedeinkatu egin baitzaitu Jaunak nire bitartez. Jose Antonio Mujika

Euri erauntsiak lur azalera **erruz** ateratzen dituen zomorro kaltegarrien pare. Karlos Zabala

Euria **erruz** ari zuen gainera, atertu gabe. Txillardegi

Hala, domingotar haien bizikera eta sona medio, **erruz** ugalduko zen Domingo izena gure artean. Patziku Perurena

Lasaitasun hartan **erruz** ugaldu ziren eta munduko ondasunez gehiegi aberastu. Askoren artean

Pilatu egurra **erruz** eta piztu sua; egosi ongi haragia, bota gozagarriak, eta desegin daitezela hezurrak. Elizen arteko biblia

Guretzat guztiz arrotzak diren kontsonante- eta bokal-multzoak **erruz** aurkitzen ditugu beste erdara askotan, baina horretan ere gehienetan bat datoz euskara eta gaztelania. Iñaki Arranz

Morse andrea etengabe eta **erruz** aritu zen edaten, eta gogotik saiatuagatik, ezin gainditu zuen bere malenkonia. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dira erruz (3); **dirua erruz** (6); **ere erruz** (13); **erruz agertzen** (3); **erruz aldatuko** (3); **erruz ari** (6); **erruz atera** (6); **erruz atera ziren** (4); **erruz aurkitzen** (3); **erruz aurkitzen ditugu** (3); **erruz bildu** (3); **erruz dago** (3); **erruz edan** (4); **erruz edaten** (3); **erruz egin** (7); **erruz egiten** (6); **erruz erabili** (6); **erruz erabiltzen** (12); **erruz eta** (10); **erruz etortzen** (3); **erruz ez** (5); **erruz galdu** (8); **erruz geratu** (3); **erruz gertatu** (7); **erruz gertatu zen** (4); **erruz gertatzen** (7); **erruz handitu** (4); **erruz hartu** (3); **erruz hil** (4); **erruz hitz** (3); **erruz hurbildu** (3); **erruz idatzi** (4); **erruz isuri** (5); **erruz isuri zen** (4); **erruz izan** (12); **erruz izan da** (3); **erruz izango** (4); **erruz joan** (5); **erruz joan ziren** (4); **erruz pilatu** (4); **erruz sartzen** (4); **erruz ugaldu** (8); **erruz ugaldu ziren** (4); **erruz ugalduko** (6); **erruz ugaltzen** (3); **erruz zabaldu** (3); **erruz zebilen** (3); **eta erruz** (24); **euria erruz** (4); **jendea erruz** (17); **jendea erruz zebilen** (3); **lana erruz** (9); **lana erruz egin** (5); **odola erruz** (10); **odola erruz isuri** (5); **ppren erruz** (3); **sepik erruz** (3)

---

erruztatu, erruzta(tu), erruztatzen **1** du *ad* errudun dela adierazi.

Italiako Justiziaren manipulazioak ezker muturrari egotzi zizkion atentatu guztiak eta 20.000 pertsona **erruztatu** zituen. Berria - Mundua

2 (era burutua izenondo do izen gisa)

Delitua hirugarren baten aurkako iraina denean, epaile erdiak **erruztatuaren** mailakoak izan beharko dute eta beste erdiak irainduarenak. Juan Martin Elexpuru

Legeek denbora bat zehaztu behar dute, bai **erruztatuaren** defentsarako eta bai frogak aurkezteko. Juan Martin Elexpuru

Legearen alde penalak ez du **erruztatua** zigorra betetzera behartzen, magistratua baizik. Esteban Antxustegi

Diru-zigorrek **erruztatuen** kopurua handitu egiten dutenez, delituena baino handiagoa bihurtuz, eta zigor hauek errugabeei ogia kentzen dietenez gaizkileei dirua ateratzeko, zigorrik egokiena errudunak gizarteari eskaini beharko dion lana eta pertsonaren denbora baterako esklabotza izango da. Juan Martin Elexpuru

Torturapean egindako aitorpenak ez du balio, baldin eta hura amaituta gero **erruztatuak** ez badu berriz zinpean baieztatzen; baina **erruztatuak** ez badu delitua onartzen, berriro torturatzen dute. Juan Martin Elexpuru

Azkenengo kasu hau da ohikoena, esperientziak erakusten baitigu **erruztatuek** ezetzari eusten diotela auzi gehienetan. Juan Martin Elexpuru

Esan behar da, **erruztatu** batek froga akasdun baten aurkako garbitasun egokirik ematen ez duenean, froga hau akasgabe bihurtzen dela. Juan Martin Elexpuru

---

ertain **1** *izond* artekoa, bitartekoa, erdikoa.

Ingurumen eragina: **Ertaina**. Berria - Euskal Herria

Gaboneko egonaldiaren ondotik, Biarnoko hiri **ertain** batean izendatua izan nintzen, ikastexe katoliko batean. Piarres Aintziart

Garaiera **ertaineko** mutila zen, argal baina gihartsua. Juan Garzia

Neskak neurri **ertaineko** gela bat ikusi zuen, larruzko zenbait besaulki eta sofarekin jantzia. Patxi Zubizarreta

Maiztasun **ertaineko** (2,8-3,5 KHz) sonarra erabili zuten AEBetako Itsas Armadako sei ontzik, Bahamak uharteetan. Berria - Gaiak

Garaiera arrunta zuen, txikia handia baino gehiago; burua erdi tamainakoa eta biribila; aurpegia luzexka eta irtena; bekokia laua eta txikia; begiak **ertainak**, beltz aratzak; ilea beltza. Askoren artean

Editorea zen, zeina, tamaina **ertaineko** rotaflex bat eskuan, aparra ezpainetan eta begiak beren zuloetatik irtenda, politikariaren inguruan bildutako zortzi edo bederatzi pertsonen aurka amildu baitzen. Jon Alonso

Antzinako zurez estalitako paretetan ahots **ertainez** esandako hitzek durundiatzen baitute, harien soinuek musika-tresna baten zurean bezala. Xabier Olarra

Eremu berde bat zuri ikusten zuen uhin-luzera **ertaineko** argitan; beltz, ordea, argi zuri edo uhin-luzera handikoetan. Xabier Olarra

Merkataritza-mota batek beste motara darama: txikiak **ertainera**, **ertainak** handira. Iñaki Iñurrieta

Ozentasun **ertaineko** soinu batek, 1.000 Hz-eko maiztasunean, 7.000 nerbio-zuntz inguru aktibatuko ditu. Irene Aldasoro

Aita -enpresa bateko kargu **ertaina**- ez omen zuen alde, baina izeba Milagrosek egin omen zion ararteko lana. Aingeru Epaltza

Soldadu gutxi batzuk baino ez nituen ikusi, graduazio **ertainekoak**. Urtzi Urrutikoetxea

Errenta **ertaineko** herrien zorra arindu nahi du Frantziak. Berria - Harian

Tiroak, gainerako hirurei bezala, distantzia **ertain** eta luzetik egin zizkioten, autopsiaren arabera. Berria - Harian

Tamaina txiki edo **ertaineko** zentroa. Berria - Ekonomia

Formato txiki eta **ertaineko** estrukturak egin ditu, alanbre, aluminio eta pinturarekin. Berria - Kultura

Formato handiko, **ertaineko** eta txikiko obrak. Berria - Kultura

Komunikazioaren oihanean taldeen arteko fusioak perretxikoen antzera loratu diren uneotan, guk hedabide txiki eta **ertainen** sare trinkoa osatu dugu. Txema Ramirez de la Piscina

Gutiz gehienak (% 95) Bilboko berekoak izanik enpresa txiki edo **ertain** (arteko) horiek beste ainitz ere bereganatzea uste dute. Herria

Euskal Herriko enpresa gehienak txikiak eta **ertainak** direla kontuan hartuz gero, haientzat interesgarriak izan daitezkeen merkatuetan industrialdeak eratzea proposatzen du Ganberak. Berria - Ekonomia

Ikasketa **ertainak** bukatu zituztenen %46,1ek lanbide heziketako ikasketak hasi zituzten iaz Araban. Berria - Euskal Herria

Kultur maila altuko eta ekonomi maila **ertaineko** jendea. Xabier Mendiguren Elizegi

Klase **ertaina** ere, legelari eta beste profesional batzuek osatua, behar zen, erregimentuko ofizialen baliokide gisa, eta mendeko-andana bat oinarrizko soldadu arrunten parean. Iñaki Mendiguren

Viktoriar garaiko klase **ertain** bertutetsuari. Iñaki Mendiguren

Bigarren kezka Jakob Gómez, eskola **ertaineko** irakasleak azaldu zuen. Felipe Juaristi

Irakaskuntza **ertaineko** ikasleentzat. Berria - Kultura

Bizitzaren **ertaineko** adinera iritsi da liburuko ibiltaria, eta, bat-batean, harrizko oihanean ibiliz, oraingo egoeraz ohartu da. Berria - Kultura

Orrialdeetan aurrera egiten dugun heinean, probintziako hiri ziztrin bateko burgesia txiki-**ertainaren** erretratua eskainiko digu. Berria - Kultura

2 (denborez edo aldiez mintzatuz)

Adin **ertainean** hasten da nabarmentzen folikuluen galera. Irene Aldasoro

Judu-itxurako emakume adin **ertaineko** bat zen Delacour andereñoa. Irene Aldasoro

Epe **ertainera** edo luzera. Berria - Euskal Herria

Zer espero duzu estatuengandik epe labur edo **ertain** batera? Berria - Harian

Tamalez ez dago errealitatean, epe motz eta **ertainera**, bestelako alternatiba bideragarri hoberik. Iñaki Heras

Epe laburreko maileguak hartu zituzten, dibisetan, tokiko inbertsioak finantzatzeko, epe **ertainekoak** nahiz epe luzekoak, produktiboak edo espekulatiboak. Koro Navarro

Funtsezkoa da arrisku horiek epe **ertaineko** inflazio aurreikuspenei ez eragitea. Berria - Ekonomia

Beste botika batzuk gaitzaren fase **ertainetan** izaten dira erabilgarriak. Berria - Gaiak

Gizarte Egipziakoak, aldiz, bi mila urtez behintzat eutsi zion bere buruari "Erresuma **Ertainaren"** kolapsoarekin haren berezko bizi-itxaropena bukatu ondoren. Iñaki Mendiguren

Inperio **Ertaina**. Iñaki Mendiguren

Minoiko **Ertain** II-tik Minoiko **Ertain** III-rako trantsizioan bi idazkera hieroglifiko banatu, aurreko denboraldiaren hasieran aldi berean agertu zirenak, bat-batean eta erabat ordeztu zituen beste idazkera lineal batek (A Linealak). Iñaki Mendiguren

Adin **ertaina**: 34 urtekoa. Herria

3 (kokalekuez mintzatuz)

Esku-ahurrak ere, eskumuturretik hasi eta hatz **ertainaren** muturreraino, berdin neurtzen du. Santiago Iruretagoiena

Sohüta basa bazterrean gazteak etxekoen ondotik plantatzen dira eremü **ertaineko** etxalteetan. Herria

Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek, azkenean, zein aldetan aurkituko ote zituzten beren interesak Ekialde **Ertainean**? Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adin ertainean (3); **adin ertaineko** (21); **adin ertaineko emakume** (6); **adin ertaineko gizon** (7); **edo ertain** (3); **enpresa ertain** (7); **enpresa ertain eta** (7); **epe ertain** (23); **epe ertain batean** (3); **epe ertain edo** (8); **epe ertain eta** (10); **epe ertainean** (29); **epe ertainean euskal** (3); **epe ertaineko** (5); **epe ertainera** (24); **epe ertainerako** (6); **errenta ertaineko** (3); **ertain bat** (5); **ertain batean** (7); **ertain edo** (10); **ertain edo luzerako** (3); **ertain eta** (28); **ertain eta luzeko** (4); **ertain eta luzera** (3); **ertaina txikia** (3); **ertainak dira** (3); **ertainak eta** (4); **ertainaren bizi maila** (3); **ertainean euskal** (3); **ertainei eta** (3); **ertaineko emakume** (6); **ertaineko eta** (4); **ertaineko gizon** (7); **ertaineko gizon bat** (3); **ertaineko ikasleentzat** (3); **ertainen lehiakortasuna** (3); **ertainen sare** (3); **ertainera edo** (3); **ertainera edo luzera** (3); **eta ertain** (6); **eta ertainak** (16); **eta ertainean** (5); **eta ertainei** (11); **eta ertainek** (11); **eta ertaineko** (4); **eta ertainen** (14); **eta ertainen lehiakortasuna** (3); **eta ertainen sare** (3); **eta ertainetako** (6); **eta ertainetan** (4); **eta ertainez** (3); **eta klase ertaineko** (3); **formatu ertaineko** (3); **irakaskuntza ertaineko** (3); **irakaskuntza ertaineko ikasleentzat** (3); **klase ertain** (19); **klase ertaina** (16); **klase ertainak** (6); **klase ertainaren** (24); **klase ertainaren bizi** (3); **klase ertainari** (3); **klase ertaineko** (27); **klase ertainen** (3); **maila ertainean** (3); **maila ertaineko** (16); **mendebaldeko klase ertainaren** (9); **motz eta ertainean** (3); **neurri ertaineko** (6); **tamaina ertaineko** (5); **txiki eta ertain** (3); **txiki eta ertainak** (11); **txiki eta ertainei** (11); **txiki eta ertainek** (8); **txiki eta ertaineko** (3); **txiki eta ertainen** (12); **txiki eta ertainetako** (5); **txiki eta ertainetan** (4); **txikiak eta ertainak** (4); **txikiek eta ertainek** (3)

---

ertamerikar *izond* Ertamerikakoa, Ertamerikari dagokiona.

Etzi Santanderren joko du Serratek, hor ere EOSEekin, eta jarraian **Ertamerikara** joko du. Berria - Kultura

Afalondoan Hego eta **Ertamerikaren** inguruan mintzatu ziren. Berria - Euskal Herria

Gorpuen artean, AEBetako aliatuenak ere baziren; askok **ertamerikar** itxura zuten. Berria - Mundua

Mexikoko Errepublikak -Mendebaldeko estatuen elkartean onarpena bilatu eta lortu zuenak- lekua hartu zionean, **ertamerikar** gizartea Mendebaldeko gizartearen gorputz sozialera asimilatzea atzeraezinezko moduan egin zela. Iñaki Mendiguren

---

ertaro *(orobat **Ertaro** g.er.) iz* erdi aroa.

Ertaroan "gorabilla" izeneko soka erabiltzen omen zen luzera handiko neurriak hartzeko. Patziku Perurena

Orain, **ertaroko** izkribu zaharrok leitzekoan, *pomada aguavino* eta *pomada mosto* euskal pitarra eta sagardoa izan ote litezken bururatu zait, baina, filologo eminente horien esku uzten dut nere zalantza. Patziku Perurena

Lehengoak lehengo, **ertaroko** testu zaharretatik hasi eta egundaino, hor ageri dira elkarren orpoz orpo: [...]. Patziku Perurena

Gogora ditzagun **Ertaroko** balada eta erromantzeak, Europa osoko hizkuntzetan asmatzen direnak. Joxerra Garzia

Ertaroko amodio kanten lirismo kutsu nabaria baitario ote loratuaren eta xoriaren arteko lirismo erotiko xahar gorde horri. Patziku Perurena

---

ertarotar *(orobat **ertarotiar** g.er.) izond* erdi arokoa, erdi aroari dagokiona.

San Pedrok, Lezok eta abarrek, bisitari frantsesaren Frantzia moderno eta europarraren aldean, Espainia **ertarotar** eta arabiarra ordezkatzen dute, pobrea, zikina, arkakusoz betea, erlijio beltzean murgildua, barbaroa. Koldo Izagirre

Cid printzipioz espresio jatorra da arraza espainolaren arimarena ("entre gótica y celtíbera"), baina barbaroa, **ertarotarra**; arraza espainolaren arimaren agerkunde jator eta modernoa, h[au] d[a], izpirituarena, Cervantes da. Joxe Azurmendi

Anbizio gordinenen historia basa **ertarotarra** da, krimenez josia. Joxe Azurmendi

Ortegarentzat ere kakoa mendebala kristautu izatean datza, hots, aszetismo kristaua germano **ertarotarren** oldarrari nagusitu zitzaionez gero hedatu den moral gelbera, ahul, melengan. Joxe Azurmendi

Balioak berak, zuzenki eta abstraktuki, guretzat ez dira "Jainkoaren hitzagoak" ala gutxiagoak (edo razionalagoak ala gutxiagoak), **ertarotarrentzat** erlijioak izan zitezkeen bezala. Joxe Azurmendi

Hark goratzen zuen erromantzeetako zaldun izpiritu **ertarotarra**. Joxe Azurmendi

---

ertarotartu, ertarotar(tu), ertarotartzen du *ad* ertarotar bihurtu.

Ideia moderno bat **ertarotartuz**, edo viceversa, Cadizko "Gorteetan" askaera bat asmatu da, alderdi kontserbatzaile nahiz liberala ase zitzakeena, teorian berdin baliagarria bientzat -edo praktikan bientzat berdin baliaezina. Joxe Azurmendi

---

ertarotiar ik **ertarotar**.

Erteuropa *iz* erdialdeko Europa.

Baina XIX. mende azkenetan eta I. Mundu Gerraren inguruan eduki du balioei buruzko diskurtsoak **Erteuropan** bere bolada handia, balioen erabateko krisia ezkutaezina bilakatu denean. Joxe Azurmendi

Balioen porrot publikoak XIX. mendean nolako inpresioa egina izan behar dion jendeari **Erteuropan**, Nietzscheren "Jainkoaren heriotzaren" filosofian nabari da. Joxe Azurmendi

---

erti *iz* artea, gauza ederrak sortzea helburutzat duen giza jardunbidea; jardunbide horren emaitza.

Han, argiari bizkar, banan-banan pasa dizkit Markaidak bere **ertiaren** emaitzak. Koldo Izagirre

Benetan hartu ote dakioke gaina denborari? Ba ote du pertsonak noizaldiari irabazterik? **Ertiaren** bitartez, antza, arrosak betiereko iraun dezake zimeltzeke. Berria -

Kultura

Barbaroen porrotaren erabatekotasun izugarriak gizarte- eta politika-mailan paradoxikoki haien bardoen sorkuntza-lanaren arrakasta eragiten du, zeren eta **ertian** gauza gehiago sortzen baita porrotetik arrakastatik baino. Iñaki Mendiguren

---

ertireki, ertireki, ertirekitzen *(orobat **ertiriki**)* du *ad* erdizka ireki.

Ondo begiratu eskuak estaltzen duen zoko horri; **ertireki** egingo dut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ikusi nola egiten duen aharrausi, nola **ertirekitzen** duen atea! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sabeth lotan, ahoa **ertirekirik**, haur-ahoa berea, ilea solte, eta bere seriotasuna, eta bere begi hertsiak. Joxe Austin Arrieta

Etxeko atea **ertirekita** zegoen. Pablo Sastre

---

ertiriki ik **ertireki**.

---

ertitxi, ertixten du *ad* erdizka itxi.

Belak burua Joxemariren sorbaldan jarri zuen; hari besarkatuta, begiak **ertitxita** Aneri begira zegoen. Pablo Sastre

---

ertor ik **erretor**.

---

ertura *iz* murriztea, urritzea.

Jauna, zaldun horren irudikabideak ez du **erturarik** nozitzen zure ahoan; nahiz badakidan noski haren dohainak atalez atal emateak oroimenaren aritmetika aztoratuko lukeela, eta, halarik ere, aldaroka jardutea baino ez litzatekeela, haren ibili zoliaren aldean. Juan Garzia

Kezkatuta zegoen **erturaz**, oraindik luzatu egingo baitzen uzta. Juan Garzia

---

ertz **1** *iz* gauza lau bat bukatzen den aldea. ik **hegi; bazter**.

Errekara hurbildu eta **ertzeko** harriren batean esertzeko gogoa neukan, baina ez nintzen mugitu. Bernardo Atxaga

Jonatanek, bere aldetik, Genesaret aintziraren **ertzean** ezarri zuen kanpalekua. Elizen arteko biblia

Bainuontziaren **ertzean** zegoen leihoko pertsiana jaso zuen. Lopez de Arana

Hankak zuloan sartu, eta **ertzean** eseri zen. Ramon Saizarbitoria

Orioko hondartzako zuloetan ezkutatzen zen haurra da, hondoan babestuta sentitzen zena, zuloaren **ertzek** mugatzen zuten ortzi zatia besterik ikusten ez zuela. Iñaki Iñurrieta

Infernuko zuloaren ahoan ikusi zuen bere burua, gorrotoak eta etsipenak itsutu zuten eta amildegi haren **ertzean** etengabeko zurrunbilo batean zorabiatu nahi izan zuen adimena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ohearen **ertzean** eseri nintzen. Bernardo Atxaga

Ahoaren bi **ertzetan** eta kokotsean zimur sakon bat agerian zuen. Lopez de Arana

Lau aingeru ikusi nituen lurraren lau **ertzetan** zutik, lurreko lau haizeei eusten, haizeak jo ez zezan ez lurrean, ez itsasoan, ez eta zuhaitzetan ere. Elizen arteko biblia

Mendi horiek Ozeano Artikoaren itsasbazterrean jaio eta itsaso kaspiarreko **ertzetaraino** doaz, alde batera Errusia eta bestera Siberia utzirik. Karlos Zabala

Sofaren **ertz-ertzean** zegoen eserita, hanka biak zabalik eta eskuak soberan balitu bezala, zintzilik, zurrun. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizon gazteak **ertz** zuriko txalekoa zeraman. Lopez de Arana

Brisak kapelaren **ertz** estutuaren inguruko ilea harrotu eta lokietako izerdia lehortzen zion. Lopez de Arana

Muranoko beirazko idazluma eta tintontzia atera, eta **ertz** zabaleko eta azal gogorreko koaderno lodia ireki zuen Ruche jaunak. Maleta beltza zen eta **ertz** zilarreztatuak zituen, gainindartuak. Jon Muñoz

Maleta beltz bat dakar berekin, **ertz** metaleztatuak dituena, argazkilariek erabiltzen duten horietakoa. Harkaitz Cano

Buruan, zetazko txanoak, larruzko **ertzarekin** eta haizeak dantzarazten zituen hiru xingolekin. Karlos Zabala

Hornitu zortzi zentimetro zabaleko uztai batez, eta egin urrezko **ertza** uztaiari. Elizen arteko biblia

Goiko aldeko erlaitza, goiko dintelaren gainean jartzen dena, pronaoan altxa diren kolomen kapiteletako goiko **ertzaren** maila berean geratuko da. Santiago Iruretagoiena

Bostehun oin beherago, ibaiaren ibilgua zabaltzen zen berriro ere, eta izotz puskak jela banku haren beheko **ertzetik** bereizi eta aurrera segitzen zuten Irkutskeraino. Karlos Zabala

Mantuaren barreneko **ertza** purpura more, gorri eta gorriminezko granadaz apaindu zuten. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jelazko hesia latza zen eta **ertz**-zorrotza, eta eskuak odoldu zitzaizkien. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Puru bana aho **ertzean** zeramatela, kementsu eta arranditsu zeharkatu zuten City Hall Square. Lopez de Arana
esaten edo (19); **esaten ei** (12); **esaten entzun** (35); **esaten ere** (16); **esaten eta** (56); **esaten eta egiten** (11); **esaten ez** (203); **esaten genion** (44); **esaten genuen** (58); **esaten hasi** (118); **esaten hasi zen** (21); **esaten hasi ziren** (16); **esaten jakingo** (15); **esaten jarraitu** (12); **esaten nien** (21); **esaten nion** (138); **esaten nion neure** (25); **esaten nizun** (16); **esaten nola** (12); **esaten nuen** (91); **esaten nuen nik** (14); **esaten omen** (77); **esaten omen zuen** (22); **esaten ote** (23); **esaten saiatu** (15); **esaten uzten** (11); **esaten zaie** (53); **esaten zaien** (18); **esaten zaigu** (19); **esaten zaio** (215); **esaten zaio horri** (13); **esaten zaion** (56); **esaten zaiona** (35); **esaten zen** (115); **esaten zena** (17); **esaten zenez** (21); **esaten zenuen** (22); **esaten zer** (23); **esaten zergatik** (14); **esaten zian** (21); **esaten zidala** (16); **esaten zidan** (349); **esaten zidana** (20); **esaten zidaten** (67); **esaten zien** (127); **esaten zieten** (45); **esaten zigun** (75); **esaten ziguten** (37); **esaten ziola** (51); **esaten zion** (542); **esaten zion bere** (22); **esaten zion gure** (22); **esaten ziona** (27); **esaten zionean** (13); **esaten zioten** (188); **esaten ziotena** (20); **esaten ziotenean** (12); **esaten ziren** (11); **esaten zituela** (11); **esaten zituen** (80); **esaten zituenak** (16); **esaten zituzten** (23); **esaten zitzaien** (21); **esaten zitzaion** (42); **esaten zizkidan** (20); **esaten zizkion** (23); **esaten zuela** (50); **esaten zuelarik** (13); **esaten zuen** (1570); **esaten zuen aitak** (16); **esaten zuen amak** (25); **esaten zuen behin** (12); **esaten zuen berak** (14); **esaten zuen bere** (22); **esaten zuen beti** (40); **esaten zuen bezala** (41); **esaten zuen ez** (23); **esaten zuen gure** (78); **esaten zuen moduan** (14); **esaten zuena** (66); **esaten zuenean** (28); **esaten zuenez** (46); **esaten zutela** (11); **esaten zuten** (312); **esaten zuten bezala** (12); **esaten zutena** (21); **esaten zutenez** (30)

eta berriro esaten (28); **eta berriz esaten** (37); **eta esaten** (351); **eta esaten dio** (24); **eta esaten du** (26); **eta esaten zidan** (11); **eta esaten zion** (19); **eta esaten zuen** (62); **eta esaten zuten** (12); **eta garbi esaten** (28); **eta gero esaten** (12); **eta hala esaten** (13); **eta honela esaten** (15); **ez da esaten** (32); **ez dagoela esaten** (16); **ez du esaten** (65); **ez dugu esaten** (11); **ez dut esaten** (42); **ez esaten** (27); **ez zuen esaten** (29); **ezer esaten** (226); **ezer esaten ez** (28); **ezetz esaten** (97); **ezetzik esaten** (16); **gabe esaten** (25); **gara esaten** (15); **garbi esaten** (41); **garela esaten** (19); **gauza asko esaten** (15); **gauza bat esaten** (12); **gauza bera esaten** (43); **gauzak esaten** (34); **gehiago esaten** (19); **genuela esaten** (12); **gero esaten** (25); **gezurra esaten** (38); **gezurrak esaten** (18); **gezurrik esaten** (49); **guk esaten** (21); **gure aitak esaten** (28); **gure amak esaten** (27); **gutxi esaten** (12); **guztia esaten** (20); **guztiak esaten** (26); **haiek esaten** (16); **haiz esaten** (16); **hala esaten** (139); **hala esaten du** (16); **hala esaten zuen** (18); **halaxe esaten** (52); **han esaten** (18); **hark esaten** (33); **harro esaten** (14); **hartan esaten** (11); **hasi zen esaten** (33); **hasi ziren esaten** (11); **hau ere esaten** (16); **hau esaten** (103); **hauek esaten** (17); **hauxe esaten** (24); **hemen esaten** (30); **hemen esaten da** (18); **hitza esaten** (12); **hitzak esaten** (24); **hitzik esaten** (41); **honako hau esaten** (11); **honela esaten** (103); **honela esaten da** (11); **honela esaten zion** (12); **honela esaten zuen** (20); **hori esaten** (142); **hori esaten ari** (13); **hori esaten zuen** (18); **horiek esaten** (23); **horixe esaten** (38); **horregatik esaten** (70); **horregatik esaten da** (16); **horregatik esaten zuen** (12); **horrela esaten** (65); **horrelakoak esaten** (17); **horretan esaten** (14); **horri esaten** (11); **hura esaten** (11); **izena esaten** (26); **izenak esaten** (12); **jakingo esaten** (19); **jarraitu zuen esaten** (12); **jauna esaten** (12); **jaunak esaten** (14); **jendeak esaten** (21); **joateko esaten** (12); **kontrakoa esaten** (16); **kontuak esaten** (14); **lasai egoteko esaten** (11); **legeak esaten** (16); **maiz esaten** (19); **nahi esaten** (13); **naiz esaten** (22); **naizela esaten** (21); **neure buruari esaten** (23); **nik beti esaten** (17); **nik esaten** (98); **nik esaten dudan** (11); **nik esaten dudana** (12); **nintzela esaten** (19); **nintzen esaten** (15); **nion esaten** (28); **niri esaten** (13); **nola esaten** (84); **nola esaten da** (16); **non esaten** (23); **nork esaten** (15); **nuela esaten** (21); **nuen esaten** (27); **nuke jakingo esaten** (18); **oihuka esaten** (18); **orain esaten** (25); **orduan esaten** (21); **sarri esaten** (13); **sarritan esaten** (19); **zaiola esaten** (13); **zara esaten** (23); **zegoela esaten** (29); **zela esaten** (211); **zela esaten zen** (15); **zela esaten zion** (11); **zela esaten zuen** (61); **zela esaten zuten** (25); **zen esaten** (75); **zer esaten** (334); **zer esaten ari** (60); **zer esaten den** (12); **zer esaten duen** (39); **zer esaten duten** (21); **zer esaten zuen** (30); **zer esaten zuten** (16); **zera esaten** (107); **zera esaten zuen** (15); **zerbait esaten** (108); **zerbait esaten ari** (12); **zerbait esaten hasi** (12); **zerbaitek esaten** (12); **zergatik esaten** (68); **ziola esaten** (14); **zion esaten** (13); **zirela esaten** (38); **ziren esaten** (15); **zituela esaten** (22); **zitzaion esaten** (11); **zuela esaten** (79); **zuela esaten zuen** (19); **zuen esaten** (71); **zuen ezer esaten** (25); **zuk esaten** (30); **zutela esaten** (21); **zuten esaten** (12)

agur esatera (24); **dago esaterik** (22); **dela esatera** (24); **dela esaterik** (11); **duela esatera** (17); **egia esatera** (112); **esatera ausartu** (28); **esatera ausartuko** (23); **esatera ausartzen** (32); **esatera etorri** (27); **esatera ez** (12); **esatera joan** (20); **esatera mugatu** (17); **esatera mugatu zen** (12); **esatera zihoan** (11); **esaterik ez** (41); **esaterik ez dago** (12); **ez dago esaterik** (21); **ezer esatera** (16); **ezer esaterik** (11); **hau esatera** (13); **hori esatera** (16); **hori esaterakoan** (11); **zerbait esatera** (21)

---

esanahi

*(**1.659** agerraldi, **178** liburu eta **217** artikulutan; ETCn **16.974** agerraldi; orobat **esan nahi** g.er.) iz* **1** hitz, ikur edo kideko batek adierazten duena edo esan nahi duena. ik **esangura; adiera**.

Hitz baten hotsen historia egiteko unean, erabat bazter dezakegu hitz horren **esanahia**. Isabel Arrigain

Hitza sistema baten barruan dagoenez, **esanahi** bat izateaz gain -eta batez ere- balio bat du. Isabel Arrigain

Aipatzekoa da, azkenik, kontakizun hauetan guztietan Jainkoak duen etengabeko presentzia: gertakizun guztien atzean dago, Berak iradokitzen ditu, ametsen edo agerpenen bidez, Berak bururatzen, Berak bakoitzaren **esanahia** adierazten. Jose Antonio Mujika

Iturri horretan ere inskripzio bat dago idatzita, honako **esanahi** hau duena: ur hori oso ona dela garbitzeko, baina bertatik edanez gero, sustraietatik erortzen direla hortzak. Santiago Iruretagoiena

Morfemak, **esanahia** duten elementurik txikienak dira. Itziar Laka

Goian aipatu ditugun bi esaldiek (Mikelek eta Igorrek esanak) **esanahi** bera dute. Askoren artean

Hitzen bidez erakusten du gizakiak hitz horien **esanahia**. Imanol Unzurrunzaga

Azken batean, zer **esanahi** egokitu hitz horiei? Anton Garikano

Filologoa erotu egiten da jardun merkearekin, solas barren-huts kaka-esplikatzailearekin eta hitzekiko gorraizearekin, hau da, esanari **esanahia** gailentzen ikustearekin. Iñaki Segurola

Argiak itzaltzen dira, garaipenek **esanahia** galtzen dute, erronkek nekatu egiten dute, berriz diot nahiko nukeela gertatutakoa ahaztea. Jon Alonso

Izan ere, Erdi Aroan "etxe" izenak, gaztelerazko "casa solar, principal, palacio" **esanahia** baitzuen, eta hala, etxalde noble baten elizako abadeari "etxe abade" deitu izana. Patziku Perurena

-Izen polita da, eta **esanahirik** ez izateak politagotu egiten du. Patxi Zubizarreta

Russellek **esanahi** ororen oinarrian denotazioa dagoela defendatzen du. Askoren artean

IV. edo V. mendeko latin arrunteko *necare*-k bazuen ordurako "ito" **esanahia**. Isabel Arrigain

Txinera zaharrean, esate bateko, "oinetako" hitzak "elkarren arteko akordioa" **esanahia** omen du. Patziku Perurena

Uste dut gramatika **esanahitik** bereizia eta beregaina delako ondorioa atera behar dugula. Itziar Laka

Ez ziren gauza izan kolore-ñabarduren **esanahiaz** jabetzeko. Xabier Olarra

Nik, Danielek, ikuskariari begira eta haren **esanahia** ulertu nahian nenbilela, gizon antzeko bat ikusi nuen zutik neure aurrean. Elizen arteko biblia

Argia, mugimendua, kolorea hantxe bere aurrean, nahasturik, **esanahirik** gabe, orban lauso bat balira bezala. Xabier Olarra

Iruditzen zitzaidan ezin zezakeela izan, esateko, benetako barne-bizirik, iraganaren eta orainaren arteko elkarrizketa etengabea falta zuela, esperientziaren eta **esanahiaren** artekoa, hori baita kontzientzia eta barne-bizia gainerakoontzat. Xabier Olarra

Amets egin dugu, eta ezin digu inork **esanahia** argitu. Elizen arteko biblia

Nola San Frantziskok azaldu zion anai Leoni, honek izandako ikuskari txit harrigarri baten **esanahia**. Askoren artean

Negarraren **esanahiaz** ez zen bat ere jabetzen neska autista hura: gauza fisiko bat besterik ez zuen jaso, "zarata arraro bat". Xabier Olarra

Hiriaren Errege eta Fundatzaileak azaldu zion bere herriari Eskritura Santuan jainkozko orakuluaren **esanahia** hitz hauetan: Jaungoikoak aurre egiten die harroei, baina mesede egiten apalei. Imanol Unzurrunzaga

Hona hemen, bada, parabolaren **esanahia**: Hazia Jainkoaren mezua da. Elizen arteko biblia

-Hau duzu **esanahia**: hiru saskiak hiru egun dira. Jose Antonio Mujika

Latinezko *dispensatio* hitza, etxezainaren administrazio edo ondasun-kudeaketa esan nahi duena, hemen "salbuespen" **esanahiaz** erabiltzen da. Askoren artean

CNTkoa naiz orain... -atera zitzaidan harro, isilune **esanahiz** bete baten ondoren. Inazio Mujika Iraola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bekatuak, bere **esanahirik** zabalenean, arrazoi zuzenaren kontra esan, egin eta irrikaturiko guztia hartzen du. Esteban Antxustegi

Eskemek, aitzitik, gauzak agertzen diren gisara soilik errepresentatzen dituzte, eta beraz, kategoriek askoz ere **esanahi** zabalagoa dute, edozein eskematatik beregaina den **esanahia**. Ibon Uribarri

Biharamunean, santuak lagunei adierazi zien ikuskaria, mindurik ikuskariaren **esanahi** ezkutua atzemateko gauza ez zelako. Askoren artean

Idazteuna interpretatzerakoan testu biblikoen **esanahi** alegoriko edo espirituala bilatzera animatzen gaitu. Imanol Unzurrunzaga

Jantziok, izan ere, kopuruz, luzeraz zein formaz erritualak zehatz-mehatz aginduak, **esanahi** mistikoz eta erlijiozkoz beteak baitira. Juan Garzia

Gramatikalki zuzena eta **esanahi** argikoa den testu luze bat hitzak kateatuz osatzea zaila. Iñaki Arranz

Musikak hitzezko **esanahi** garbirik ez duenez, seguruenik besteren izango dik. Xabier Olarra

Esanahi garbia zuen berdintasun horrek. Josu Zabaleta

Esanahi objektiboa ezin da izan beste errepresentazio batekiko harremana. Ibon Uribarri

Esanahi material batetik **esanahi** espirituala sortzea. Iñaki Mendiguren

Herrialdearen kanpo zorraren %7 baizik ez den arren, **esanahi** politiko handiko keinua da Argentinarentzat, NDFk eragin handia izan duelako hango politika ekonomikoa erabakitzean. Berria - Ekonomia

Hainbestez, objektua noumenoa litzateke **esanahi** positiboan. Ibon Uribarri

Hitzek **esanahi** desberdinak har ditzakete, jakina. Joseba Zulaika

Batzuetan, ordea, **esanahi** ezberdin horiek bildu nahi ditu aldi berean egileak hitz bat erabiltzerakoan, egiazko "zentzu biko hitza" bailitzan. Iñaki Arranz

Onar dezagun esaldi-banako baten **"esanahi** bikoitza" definitzen dugula bera bezala transkribatutako esaldi-banako guztien taldea bezala. Itziar Laka

Kategoriek beren **esanahi** hutsean, sentimenaren baldintzak alde batera utziz, oro harrezko gauzentzat balio behar dute, gauzok diren gisara. Ibon Uribarri

Nik, beraz, **esanahi** hedatu honetan erabiliko dut "absolutu" hitza. Ibon Uribarri

Zaila da zehazten zer den Petrus, hitzaren **esanahi** hertsian. Oskar Arana

Denbora asko samar behar izan nuen bisita haren **esanahi** benetakoa ulertzeko. Ander Irizar

Handik aurrera halako **esanahi** misteriozko bat zuten harentzat animalia guztiek. Josu Zabaleta

Nire ardura bakarra hitzaren aukeraketa da, ez hitzak dakarren **esanahi** erantsia. Pako Aristi

Haatik, **"esanahi** lexikoari" kontrajarri ohi zaion "egiturazko **esanahia"** kontzeptua nahikoa susmagarri agertzen zaigu. Itziar Laka

Adigai enpirikoen kopuru handia erabiltzen dugu inoren aurkakotasunik gabe, eta dedukziorik egin gabe ere haiei zentzu eta **esanahi** irudikatua egoztea sori zaigu. Ibon Uribarri

Esanahi ezkutu, kabalistiko, magiko, tantrikoa agian, suposatzen zitzaien hitzei. Jon Alonso

Kategoria hutsek sentimenaren baldintza formalik gabe **esanahi** transzendental soila dute, baina ez dute erabilera transzendentalik. Ibon Uribarri

Esaerak eta hitzak jatorrizko **esanahitik** apur bat desbideratzen dituzten fenomeno soziolinguistikoak. Jon Alonso

Zutik zeuden haietako batengana hurbildu eta ikusi nuen guztiaren egiazko **esanahia** azaltzeko eskatu nion. Elizen arteko biblia

Jakina, irudizko **esanahia** zuten. Imanol Zurutuza

Subjektua-aditza harreman gramatikala (hots, perpausaren IS-AS analisia) egilea-ekintza "egiturazko **esanahi"** orokorrari dagokio. Itziar Laka

Hitz hauek ez baziren ere, honelatsuko **esanahiez** mintzo nintzaizun: noiz arte, Jauna? Imanol Unzurrunzaga

Halako **esanahia** edo denotazioa ez dela balio idiosinkroniko bat, hots, sistema barruan osaturikoa eta haren araberakoa den zerbait baizik. Isabel Arrigain

Irudi bidezko **esanahiaren** eta hitz bidezko **esanahiaren** arteko oinarri-oinarrizko desberdintasunak agerian jartzeko. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espero daiteke hizkuntzaren beste iker-alor batzuek, garatu ahala, **esanahi**-teoriaren atal batzuk bereganatuko dituztela. Itziar Laka

Semiologiarentzat hizkuntza baita komunikazio eta **esanahi**-fenomeno ororen eredua. Josu Zabaleta

Ezaugarri hauexek dira delako hizkuntzan **esanahi**-bereizkuntzarako erabil daitezkeenak. Lourdes Oñederra

Zatiketa subjektibo eta sinkronikoek elementu materialak bereizi nahi izanez gero, berariaz materiazko elementu horietako bakoitzari dagokion **esanahi** zatia kontuan harturik egin behar dute zatiketa hori, eta ikuspuntu horretatik, erroa da familia bereko hitz guztiek daramaten **esanahi** zati abstraktuena eta orokorrena den elementua. Isabel Arrigain

Gramatikala esatean, sinkronikoa eta **esanahi** mailakoa esaten ari gara. Isabel Arrigain

Kontu hori -alegia, **esanahi** aldaketa horren zergatiko hori- ez da funtsezkoa. Isabel Arrigain

Zer da *colere* latinez? **Esanahi**-pila bat dugu: [...]. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Batzuek hor ikusten dute gure izenaren jatorria bera ere, euzkoa, "eguzkiarena" alegia, horrenbeste maite ditugun hizkuntza **esanahi** eta etimologiak oinarri ahulekin urrunera eramanez. Pello Salaburu

5 ***esanahizko*** *izlag*

Izan ere, termino horietako bakoitza alda daiteke, bere **esanahizko** funtzioarekin zer ikusirik ez duten legeen arabera. Isabel Arrigain

Noraino dagokio *cachot* -en *-ot* atzizkia **esanahizko** elementu bati? Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

badu esanahi (3); **baina esanahi** (4); **baino esanahi** (5); **bere esanahi** (16); **beren esanahi** (6); **beste esanahi** (31); **beste esanahi bat** (21); **beste esanahi batzuk** (3); **bi esanahi** (14); **bi esanahi ditu** (3); **biek esanahi** (3); **bigarren esanahi** (4); **da esanahi** (5); **du esanahi** (8); **duen esanahi** (3); **dute esanahi** (5); **duten esanahi** (5); **edo esanahi** (5); **ere esanahi** (8); **esanahi aldaketa** (3); **esanahi asko** (4); **esanahi bakarra** (7); **esanahi bat** (49); **esanahi bat eman** (4); **esanahi bat ematen** (3); **esanahi bat ere** (3); **esanahi bat hartu** (4); **esanahi baten** (3); **esanahi batzuk** (5); **esanahi benetakoa** (3); **esanahi bera** (17); **esanahi berbera** (4); **esanahi berezi** (3); **esanahi berezia** (17); **esanahi berezia zuen** (3); **esanahi berezirik** (5); **esanahi berria** (4); **esanahi berriak** (5); **esanahi bikoitza** (7); **esanahi desberdina** (6); **esanahi ditu** (3); **esanahi du** (8); **esanahi edo** (4); **esanahi erabat** (4); **esanahi eta** (21); **esanahi eta erabilera** (3); **esanahi ezberdin** (3); **esanahi ezberdina** (4); **esanahi ezberdinak** (5); **esanahi ezkutu** (3); **esanahi ezkutua** (7); **esanahi finko** (3); **esanahi gordea** (3); **esanahi guztia** (6); **esanahi guztiak** (3); **esanahi handia** (6); **esanahi handia du** (3); **esanahi handiko** (3); **esanahi hertsian** (6); **esanahi hitza** (4); **esanahi honetan** (7); **esanahi hori** (7); **esanahi izan** (5); **esanahi jakinik** (3); **esanahi literala** (3); **esanahi logiko** (3); **esanahi oro** (3); **esanahi osoa** (3); **esanahi politiko** (5); **esanahi politiko eta** (4); **esanahi politikoa** (8); **esanahi politikoa eta** (3); **esanahi positiboan** (3); **esanahi propioa** (3); **esanahi sakona** (5); **esanahi sinboliko** (3); **esanahi zehatz** (4); **esanahi zehatza** (8); **esanahi zehatzik** (5); **esanahi zuen** (8); **eta esanahi** (34); **ez du esanahi** (5); **ez esanahi** (5); **guztien esanahi** (3); **haren esanahi** (6); **hiru esanahi** (3); **hitza esanahi** (3); **hitzak esanahi** (5); **hitzaren esanahi** (9); **hitzek esanahi** (5); **hitzen esanahi** (3); **honen esanahi** (3); **horrek esanahi** (4); **horren esanahi** (7); **niretzat esanahi** (4); **oso esanahi** (4); **zein esanahi** (7); **zer esanahi** (22); **zer esanahi du** (4); **zer esanahi izan** (3); **zer esanahi zuen** (5)

ametsaren esanahia (11); **ametsen esanahia** (4); **baita esanahia** (3); **bakoitzak bere esanahia** (4); **bakoitzaren esanahia** (3); **baten esanahia** (17); **benetako esanahia** (12); **bere esanahia** (21); **beren esanahia** (6); **beronen esanahia** (3); **bestelako esanahia** (5); **da esanahia** (4); **den esanahia** (3); **du esanahia** (7); **duen esanahia** (15); **duten esanahia** (5); **egiazko esanahia** (6); **egiturazko esanahia** (6); **esanahia aldatu** (3); **esanahia argitu** (6); **esanahia argitzeko** (5); **esanahia argitzen** (3); **esanahia azaldu** (4); **esanahia azalduko** (5); **esanahia azaltzeko** (6); **esanahia azaltzen** (3); **esanahia bera** (4); **esanahia bereizteko** (5); **esanahia bereizteko funtzioa** (3); **esanahia bilatu** (3); **esanahia da** (3); **esanahia du** (3); **esanahia duela** (3); **esanahia duen** (3); **esanahia dute** (4); **esanahia duten** (5); **esanahia edo** (6); **esanahia ematea** (4); **esanahia emateko** (3); **esanahia ematen** (5); **esanahia ere** (9); **esanahia eta** (22); **esanahia ez** (13); **esanahia ez da** (4); **esanahia ezagutu** (3); **esanahia ezagutzen** (3); **esanahia galtzen** (3); **esanahia hartu** (4); **esanahia izan** (4); **esanahia ulertu** (6); **esanahia ulertzen** (8); **esanahia zeharo** (3); **eta beronen esanahia** (3); **eta esanahia** (22); **gauzen esanahia** (3); **guztiaren esanahia** (4); **guztien esanahia** (6); **haien esanahia** (6); **haren esanahia** (23); **hauen esanahia** (7); **hitz baten esanahia** (5); **hitz horien esanahia** (5); **hitz horren esanahia** (5); **hitzaren esanahia** (33); **hitzaren esanahia ezagutzen** (3); **hitzen esanahia** (23); **honen esanahia** (3); **horien esanahia** (6); **horren esanahia** (22); **horren guztiaren esanahia** (3); **legearen esanahia** (3); **perpaus baten esanahia** (3); **ren esanahia** (3); **zuen esanahia** (3)

bere esanahiaz (3); **bere esanahirik** (4); **bere esanahirik zabalenean** (3); **beste esanahirik** (4); **bi esanahiak** (6); **du esanahirik** (5); **duen esanahiaren** (4); **dute esanahirik** (3); **duten esanahiagatik** (4); **esanahiak ere** (4); **esanahiaren aldetik** (14); **esanahiaren bila** (3); **esanahiaren eta** (6); **esanahiari buruz** (3); **esanahiari buruzko** (10); **esanahiaz galdetu** (6); **esanahiaz jabetu** (4); **esanahiaz jabetzeko** (6); **esanahiren bat** (10); **esanahirik ez** (8); **esanahirik gabe** (3); **esanahirik gabea** (3); **esanahirik gabeko** (10); **esanahirik gabekoak** (3); **esanahirik izango** (4); **esanahirik zabalenean** (7); **esanahiz betea** (3); **eta esanahiak** (5); **eta esanahiaren** (12); **eta esanahiaren aldetik** (3); **eta esanahiaz** (5); **eta esanahirik** (5); **eta esanahiz** (3); **ez du esanahirik** (5); **ez dute esanahirik** (3); **ezein esanahirik** (4); **haien esanahiaren** (3); **haren esanahiaz** (8); **haren esanahiaz galdetu** (3); **hitzaren esanahiaren** (4); **hitzaren esanahirik** (5); **hitzen esanahiak** (7); **hitzen esanahiaz** (5); **horren esanahiaz** (3); **inolako esanahirik** (7); **jatorrizko esanahian** (3); **nahiz esanahiak** (3)

---

esanahibako *izond* esanahigabea.

Pentsamendu "ilustratua" da -kontzeptu honen adiera txarrenean: Voltaire-k jada saldoa tentel zozoilotzat zeukan, eta herri gogo edo izpiritua, esaten zuen, gutxiengo batean inkarnatzen da, horretan mamitzen da nazioaren funtsa (kulturan, politikan), jende-masa artalde **esanahibakoa** da. Joxe Azurmendi

---

esanahidun *izond* esanahia duena.

Oraingo liburuan, bildu egin ditu horietarik zenbait, esker onean egituratu, argazki **esanahidunak** erantsi, eta erraz eskaini irakurleoi. Berria - Kultura

Zure aitaren armadako trajea har dezakezu, eta amaren pazko kapelua eta zure anaiaren motozikleta eta zure arrebaren esku-poltsa, hori guztia elkarrekin jarri eta zerbait **esanahiduna** atera. Harkaitz Cano

Azken buruan, hitz edo perpaus bat **esanahiduna** izango da oinarrian errealitatearekin erlazio zuzenen bat badu. Askoren artean

Perpaus orok errealitatearekin erlazio zuzenean dauden perpaus sinpleagoetara murrizgarri izan behar du **esanahiduna** izateko. Askoren artean

Bere zuzentzaile-oroimena bertsoz eta prosaz beteta dago, puskak, zatiak dira, baita esaldi osoak ere, **esanahidunak**, beste munduetatik etorririko zelula geldi eta dirdiratsuak bailiran oroimenean ilkatzen direnak. Jon Alonso

---

esanahigabe *izond* esanahirik ez duena.

Ia garai hauetako ohitura, errito edo formalismo zentzugabe eta **esanahigabe** diruditen gehienek antzinako praktika zentzuzkoren bat dutenez sorburu, atsegina da aurkitzea antzinako zentzugabekeria bat, mendetan zehar benetan baliagarri bihurtu dena. Xabier Olarra

---

esanahigarritasun *iz* esanahigarria izateko nolakotasuna.

Zer esan nahi du, azkenean, teorian kontzeptu teorikoak ken ditzakegula **esanahigarritasun** enpirikorik galdu gabe, hori behaketa-kontzeptuetan gauzatzen baita? Askoren artean

Ezagutzazko **esanahigarritasunari** buruzko ikusmoldeak. Askoren artean

Ezagutzazko **esanahigarritasun** -irizpide enpirista: arazoa eta aldaketak. Askoren artean

---

esanahiko *izlag* esanahiari dagokiona.

Hitz hau dela eta, pentsa genezake adierazleak izandako aldaketa fonetikoez ari ginela bereziki, edo adieraziriko kontzeptuari dagozkion **esanahiko** aldaketez. Isabel Arrigain

Zuzentzailearen betebeharretako bat da anbiguotasunak, estilo mailakoak nola **esanahikoak**, saihesteko irtenbideak proposatzea. Jon Alonso

---

esanahitasun *iz* esanahia izateko nolakotasuna.

Ikusmolde estandarraren arabera teoria zientifikoa hizkuntz entitatea zen, eta beraz, hari lotutako nozio semantiko garrantzizkoenak -egiatasunarena edo **esanahitasunarena** - zeharka aztertzen ziren, teoriaren ereduak finkatu eta gero, sistema formal batentzat interpretazioa emanez. Askoren artean

---

esanahitsu *iz* esanahiz betea.

Honek ez baitu onartzen zinemak, jarduera **esanahitsu** den aldetik, ideologiarekin zuzeneko zerikusia duenik. Josu Zabaleta

Jokaera **esanahitsuaren** eta garai historiko bereizgarrien kontzeptuetan oinarritua. Josu Zabaleta

ETAk zer esaten duen baino **esanahitsuagoa** izan ohi da, ordea, zer egiten duen. Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuarekiko harremanean beste autonomia erkidego arrunten pare agertzea, edo horrela agertzeari uko egitea **esanahitsua** izango da Herritarren Zerrendak islatzen duen aukerari Europako hauteskundeetarako bidea ixten zaion edo ez ikustea. Berria - Euskal Herria

Ikaragarri **esanahitsua** da hori. Berria - Euskal Herria

Talaia-k berriki zenbaki bat atera du ezin interesgarriagoa eta -aldi berean- ezin **esanahitsuagoa**, nik uste, gure egoeraren adierazgarri gisa: "Un diálogo sobre ética", J.M. Setien gotzainaren eta F. Savater filosofoaren arteko elkarrizketa. Joxe Azurmendi

---

esanahitu, esanahi(tu), esanahitzen du *ad* esanahiz hornitu.

Metahizkuntzak hizkuntzaobjektua bere baitan duenean hori **"esanahitu"** nahi den perpausaren bitartez egin daiteke. Askoren artean

---

esanaldi ik **esaldi**.

---

esanarazi, esanaraz, esanarazten du *ad* esatera behartu.

Edozer **esanarazten** dit halakoetan, zeharo aztoratzen bainau. Mirentxu Larrañaga

Gero bere buruari galdetu zion ea zerk **esanarazi** zion hori. Anton Garikano

Abokatuaren deituraren hizki guztiak banan-banan **esanarazi** zizkion. Josetxo Azkona

Berba adeitsuz, galderaz eta erantzunez kargaturik joaten zen, eta ulertu gabe errepikatzen zituen; astakeriarik handienak **esanaraziko** zizkioketen, nahi izanez gero. Karlos Zabala

Lekukoak, gehienetan, herriko jende arloteena izaten dira, epaileak berak nahi duen guztia **esanarazi** ahal diena. Juan Martin Elexpuru

Kapitulu jenerala bildurik zegoela, bada, guztien aita santu eta Ministro jeneral zen Frantzisko santuak, espiritu sutsuz, Jainkoaren hitza aurkeztu zien eta Espiritu Santuak **esanarazten** ziona predikatu zien ahots indartsuz. Askoren artean

Aitak denok larrainean errenkadan jarri eta ozenki Aitagurea **esanarazten** zigun. Koldo Biguri

Egizu, maitea, egizu horrela, beste batzuek urtean behin zendu maitearen aldeko meza **esanarazten** duten bezala. Eduardo Matauko

Irakurle gizonezkoak «holakoxeak gara» esateko baino gehiago, irakurle andrazkoei «zelakoan zareten!» **esanarazteko** moduan. Berria - Kultura

Hark erantzun: "Erregearen profeta guztiei gezurra **esanaraziko** diet". Elizen arteko biblia

Berriro agertzen denean, jainkoaren seme eta aitaren pareko dela **esanaraziko** dio bere eromenak; elkarketa horri Espiritu Santua deitzen dion beste mamu bat gehituko dio, eta, berak esaten duenez, hiru pertsona horiek bakarra osatzen dute! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrela ulerturik, hizkuntzari hizkuntzak berak dezakeena eta ez dezakeena **esanarazteko** ahalegina dela esan daiteke poesia. Joxerra Garzia

Etsi-behar batek **esanarazten** du etsi-etsian: "bai, zoriontsu naiz". Iñaki Segurola

Hiru urtez egin zizkidaten itaunketetatik gehienetan, Al Jazeerak Al Kaedarekin zerikusia zuela nahi zidaten **esanarazi**». Berria - Mundua

Nahi ez zuen zerbait **esanarazi** zioten. Anton Garikano

Deklarazio horrek, bere aurkako akusazioaren oinarriak, Guardia Zibilak torturapean **esanarazitako** «gezurrak» jasotzen dituela argudiatu zuen Alegriak. Berria - Euskal Herria

---

esanbako *izond* esangabea.

Dylanek badaki egunean hainbeste ordu elkarrekin erretzeari egotzi ahal diola bere pentsamendu **esanbakoei** antzemateko Nemesiok aspaldian ageri duen erraztasuna. Pako Aristi

---

esanbehar *iz* esatekoa.

Nahi izatea zerbait zen garaian, tinko eta iraunkor ziren usteak, eta harrian zizelkatzen zituzten **esanbeharrak**, ahalik luzaroen iraun zezaten. Joxerra Garzia

-Bereziortua jaunarekin hitz egin dut -berriro ekin zion Moralesek bere **esanbeharrekoari** zigarrokina hautsontzian amatatuz- eta espero du operazio hau arrakastatsua izango dela. Joxemari Iturralde

---

esanbide *iz* esateko bidea.

Jabetza intelektuala edo autore-eskubideen inguruko legedia -eta erabitzeko irizpideak, oro har- gero eta orokorragoak, mundialagoak, legalki harmonizatuagoak, izango direla; Kataluniako edo Euskal Herriko estatut berrietarako proposamenetan ere, gai hau Estatuari uzten zaio **esanbidez**. Berria - Gaiak

---

esaneko 1 *izond* obeditzen duena.

Anaia xalo eta **esaneko** guztiei. Askoren artean

Ikasle bizkorra, **esanekoa**, moldakorra. Oskar Arana

Zigorraren, izurritearen astindupean, gizarte-formak desegiten ari dira, ordena suntsitu eta bizitza alderantzika mugitzen da: ordu arte **esanekoa** eta bertutetsua izandako semeak aita hiltzen du; lizuna garbi bihurtzen da; zuhurrak esku-beteka botatzen du urrea leihotik. Bernardo Atxaga

Juana Bixentak, ordea, ondo hezitako alaba **esaneko** baten logika itxia erakutsi zion indianoari: -Amak espero nau gauerako, eta hark espero nauelako joan behar dut nik. Anjel Lertxundi

Nire ametsen zaldi fier, nire literatur balentrien gamelu **esaneko**, hitz zenbatu, haztatu eta hautatuen iturri lirain. Xabier Olarra

Ikasle bizkorra, **esanekoa**, moldakorra. Oskar Arana

Ohorez bainaiz, jauna, nire esker on guztiaz, zure zerbitzari txit apal eta txit **esanekoa**. Jon Muñoz

Zuek probatzeko, gauza guztietan **esaneko** zareten ala ez jakiteko, alegia, Salomon Jaunaren errege-aulkian jarri zen, bere aita Daviden ordez. Elizen arteko biblia

Gauza guztietan aurrera atera zen, eta Israel osoa **esaneko** izan zuen. Elizen arteko biblia

Beti otzan eta **esaneko**, edozein gauza bitxi edo ezohiko eskatzen zaiolarik ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bera gauza guztietan apal eta **esaneko** izanik ere, gogor pertsegitzen eta zigortzen zuen desobedientzia setatia. Askoren artean

-Gizakiena -hark arrapostu, hizketa molde **esaneko** eta erregutzailez-. Patxi Zubizarreta

Abas **esanekoa** eta baketsua zen, onbera eta adiskidetzeko berezko joerarekikoa, ulerkorra eta barkabera. Patxi Zubizarreta

Rose zuen izena, txit eztia zen, eta txit **esanekoa**. Karlos Zabala

Ez naiz **esanekoa**, / neure esanekiko ez bada. Pako Aristi

Opariak egitea baino hobe haren esana egitea; ahari-gantzak eskaintzea baino hobe hari **esaneko** izatea. Elizen arteko biblia

Gogora ekarri nola Jesus haurra **esaneko** zitzaien Nazareten bere gurasoei. Patxi Altuna

Kristok, mundu honetan bizi zelarik, deiadar handiz eta negar-malkoz egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari eta, **esaneko** izan zitzaiolako, Jainkoak aditu egin zion. Elizen arteko biblia

Zeure aginpidearen partaide egingo duzu, israeldar elkarte osoa **esaneko** izan dezan. Elizen arteko biblia

Beste edozein bezain **esaneko** eta menpeko duzu gizajoa. Patziku Perurena

Eskatu nion guzti-guztia egin zuen gogo onez eta **esaneko**, eta behin ere ez zen haren bekokia zimurtu. Oskar Arana

Hura, guztiz **esaneko**, berehala hasi zen kantuan, eta hala jardun zuen, aitaren aginduz, bere lekura hegan itzuli zen arte. Askoren artean

Gaiztakeriarik gabeko pertsonaiak maite ditu Unai Elorriagak (Algorta, Bizkaia, 1973); ez, ordea, **esanekoak** eta joera nagusien menpekoak. Berria - Kultura

Denetan **esanekoena**, jasankorrena Mikel Strogoff zen, dudarik gabe. Karlos Zabala

Erlijioso benetan **esanekoa** zaldi indartsu baten gainean doan zaldunaren antzekoa da, eta haren indarraz kementsu egiten du aurrera bidearen erditik. Askoren artean

Antjek bere eskuetan nindukan, berea ninduen, **esaneko** eta otzan, bere behakoak konortea galarazita, maitemindua, txotxolotua, erabat joa. Fernando Rey

"Kontraesaneko espiritua" omen daukat barreneraino sartua, **esanekoaren** kontrakoa, kontra egitekoa. Iñaki Segurola

Azken batean, justiziarekin da **esaneko** desobedientea, eta ikuspegi horretatik bilatzen du aldaketa politiko eta soziala. Berria - Euskal Herria

2 (izenlagun gisa)

Ni ez nintzela handik mugituko; **esaneko** militantea nintzela. Inazio Mujika Iraola

Eta esaten dut **esaneko** herritarrei mesede egin behar zaiela eta aginte ahalik gogorrenez zapaldu fakziosoak. Esteban Antxustegi

3 (-en atzizkiaren eskuinean)

Jabe izateko bertara sartu zirenean, ez ziren zure **esaneko** izan, ez zituzten zure legeak bete, ez zuten zuk aginduaren arabera jokatu. Elizen arteko biblia

Gizaki honi, Jainkoaren **esaneko** denari, eta bere esturetan erabat leial denari, Jaunak erantzungo dio, saritzat bere burua eskainiz. Joan Mari Lekuona

Sekula ez ziren oso amaren edo aitaren **esaneko** izan. Pako Aristi

Denak denen **esaneko** izateko prest zeuden. J.M. Olaizola "Txiliku"

Madril aldean ere bada beste Humpty Dumpty bat, txiki xamarra, eta nagusiaren **esanekoa** oso, txita oiloarena nola. Joxerra Garzia

Esklabook, izan mundu honetan nagusi dituzuenen **esaneko**, erabateko begirunez eta bihotz-bihotzez, Kristoren **esaneko** bezala. Elizen arteko biblia

Zuek, ordea, Jaunaren **esaneko** bihurtuko zarete berriro eta gaur ematen dizkizuedan agindu guztiok beteko dituzue. Elizen arteko biblia

Eta zuek izan zaitezte Jaunaren, zeuen Jainkoaren, **esaneko**, beraren lege-bidean ibiliz eta beraren aginduak betez, gaur egin duzuen bezala. Elizen arteko biblia

Beste batzuk dirua zeukatenen aginduetara jartzen ziren, haien zaindari, soldadu edo **esaneko** izateko.· Beste engranaje baten **esaneko** ziren guztiak, erloju batean bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

4 ***ez-esaneko***

Ez ziren izango beren gurasoen antzeko: jende **ez-esaneko** eta errebeldea, gizaldi bihotz-arina, Jainkoarekiko barru desleialekoa. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain esaneko (3); **esaneko eta** (9); **esaneko izan** (6); **esaneko izanez** (3); **esaneko izatea** (5); **esaneko izateko** (3); **esanekoa eta** (6); **esanekoa izan** (4); **eta esaneko** (14); **eta esanekoa** (8); **eta txit esanekoa** (4); **otzan eta esaneko** (3); **txit esanekoa** (4); **zintzo eta esaneko** (4); **zure esaneko** (3)

---

esanekotasun *iz* esanekoa denaren nolakotasuna.

Aholkua manu mota bat da; bertan, gure **esanekotasunaren** arrazoia, agintzen den gauzatik beratik sortzen da. Esteban Antxustegi

Marjolin ez zen joan dendatik; estasiak hartuta gelditu zen andre eder haren aurrean, halako **esanekotasun** txeratsu batez beterik. Karlos Zabala

Horrexek hustu zizkion hormonen eraginpeko agresibitatea eta deblautasuna, eta hortik sortuak ziren haren **esanekotasun** eta naretasun ez-normalak. Xabier Olarra

Ez nuen botorik ematen, zerga batzuk ordaintzen nituen, besterik ez: ezin nintzen harrotu zergadunaren eskubideen izenean, ez hauteslearenen izenean, ezta hogei urtetako **esanekotasunak** enplegatuari emaniko ohorerako eskubide apalaren izenean ere. Monika Etxebarria

---

esanera[1] **1** *adlag (-en atzizkiaren eskuinean)* agindura.

Kirgizen leinuak altxatu egin dituk Feofar Khanen **esanera**, eta Siberiako bide nagusia hirea duk Ixindik Tomskeraino. Karlos Zabala

Selifanek erantzun zion: "Zure **esanera**, Pavel Ivanovitx!", baina atean geratu zen puska batez, lekutik mugitu gabe. Jose Morales

Bizi zaitez nire **esanera**, joka zuzen, eta ituna egingo dut zurekin: zure ondorengoak neurri gabe ugalduko ditut.Lebitarrek eraman zuten Jainkoaren kutxa, haga gainean sorbaldan harturik, Jaunaren **esanera** Moisesek agindu bezala. Jose Antonio Mujika

Probatu egin nahi dut, ea nire **esanera** dabilen ala ez. Elizen arteko biblia

Zeuen Jainkoarengana itzuliko zarete eta haren **esanera** jarriko. Elizen arteko biblia

Horrek zera esan nahi du, zuzenbide erromatarreko ez ziren lurraldeetan hainbeste jendek aukeratua zuela herri barbaroen legeen **esanera** bizitzea. Iñaki Iñurrieta

Horregatik onartzen dugu denok -gehienok- gizakiak, beti, bere kontzientziaren **esanera** jardun behar duela. Jenaro Garate

Adimena gogoaren **esanera** erabili behar dugula baietsi zuen. Jenaro Garate

Ez dago Jauna egoki goresterik, bere esku eta **esanera** biziz baizik: Bai, hala bedi. Askoren artean

Oso atsegin zait inoren **esanera** idaztea. "Perfektutasun absolutua" idatzi dut azkena. Antton Olano

2 dio(t)enez.

-Suspirio bat bezalakoxea da! -askatu zuen Brigida emakume pertxentak, hiru aldiz ezkondu eta hiru aldiz alargun, tabernazuloko mihi-gaiztoen **esanera**, senarrei emandako tratu maitasunezko eta andrekoiaren kariaz omen. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere esanera (5); **berorren esanera** (3); **esanera jarriko** (3); **haren esanera** (10); **jaunaren esanera** (3); **jeremiasen esanera** (3); **kontzientziaren esanera** (4); **kristoren esanera** (3); **nire esanera** (3); **zure esanera** (5)

---

esanera[2] ik **esaera**.

---

esanezin **1** *izond* ezin esanezkoa.

Halako harridura trajiko batek harrapatu ninduen, sentsazio **esanezin** batek, ia-ia oka egitera behartu ninduena. Karlos Linazasoro

Hobe dugu isiltzea, Frantziskok berak ere ezin izan baitzuen adierazi une hartan sentitu zuen aldaketa **esanezina**. Askoren artean

Ispilu honetan, hain zuzen, dirdai egiten du pobretasun zoriontsuak, apaltasun santuak eta amodio **esanezinak**. Askoren artean

Gorespen eta aintza zuri, Hirutasun **esanezina**! Askoren artean

Zeruko hiztegi eta hitz esan gabe eta hitz **esanezin** eta sekretu eta misterio guztiak. Karlos Linazasoro

Handiets eta esker dezagun Jainko betiko goi-goiko eta gorena, [...] hasierarik eta amaierarik gabea dena, aldaezin, ikusezin, kontaezin, **esanezin**, adiezin, ikertezin, bedeinkatu, goresgarri, ospetsu, goraipatu, goren, garai, leun, maitagarri, atsegingarri eta gauza guztien gainetik guztiz desiragarria gizaldietan. Askoren artean

Etxea inguratzen zuten ahotsen artean nahasita, ezaguterraz baina deszifraezin Zorra Kitorentzat, hantxe zeuden 124ko emakumeen pentsamenduak, **esanezinak**, esangabeak. Anton Garikano

2 (izen gisa)

Denborak egin duela diogu, laburbiltzeko, orriotara ez ekartzeko benetan banandu gaituena, **esanezin** guztiak, azalaren azpian jaio zaigun pusla itsusia, nork bere lurraldean altxatu duen hesi beldurgarria, arantzaduna, kosk egiteko prest dauden hortz behiala irribarretsuak gaur keinu ankerdunak. Berria - Kultura

Ez dut sekreturik nahi, ez gogaldirik, ez **esanezinik** ; ez naiz ez birjina ez apaiz, barne bizitzaren jolasean aritzeko. Monika Etxebarria

Montoiak bere egiten du estatubatuarraren **esanezina** esateko irrika, moldea apurtzeko asmoa eta tabuaren esparruan. Berria - Kultura

3 ***esanezineko*** *(orobat* ***esanezinezko****)* *izlag*

Kontenpla itzazu ondoren iluntasun jainkozkoak, hauek, beren **esanezinezko** distiraz, ilunpe baitira giza eta aingeru adimenentzat. Joan Mari Lekuona

Frantzisko santu dela, eta mundu honetan hain mesede bereziz ohoratua izan dena, zeruetan ere **esanezineko** aintzaz goratua izan dela. Askoren artean

Poliki-poliki, halako poz **esanezinekoa** eta gozotasun neurrigabea bihotz barnera isurtzen zitzaiola sumatzen hasi zen. Askoren artean

Ene bizitzaren pasarte batzuk azalduko dizkizut, zurekin eta batik bat gu bion hartu-emanarekin zerikusi estu-estua dutenak, eta hauek irakurri ahala berehala igarriko diozu ene sekretu lazgarri eta **esanezinezko** honi. Xabier Mendiguren Elizegi

---

esangabe *(orobat* ***esan gabe****)* *izond* esan ez dena.

Etxea inguratzen zuten ahotsen artean nahasita, ezaguterraz baina deszifraezin Zorra Kitorentzat, hantxe zeuden 124ko emakumeen pentsamenduak, esanezinak, **esangabeak** . Anton Garikano

Talde guztiek dute joera beren dialektoa eta beren erituak sortzeko; niretzat amets baten jiteko zerbait izan zen beti Biltzarra, eta, antza, hango lege **esangabearen** arabera, partaide bakoitzak aurkitu behar zuen, presarik gabe, elkartearen jomuga ez ezik, beren kideen izen-deiturak berak ere. Juan Garzia

Horrekin adierazi nahi dut esaten dugun guztiak baduela beti beste buelta bat, **esan gabea** . Berria - Kultura

---

esangaitz *iz* esateko zaila dena.

Ebidentzia guztiak ez dira **esangaitzak** . Jon Muñoz

Ezintasun hau sakontasunetik, sentimendu ilun eta sakonenetik, **esangaitzetik** , bizi nahi izanaren ondorio zen. Berria - Kultura

---

esangarri *izond* esaten ahal dena, esateko modukoa.

Esangarria izan behar du aurrena testuak, kantatu ahal izango bada. Berria - Kultura

---

esangura *(**1.217** agerraldi, **120** liburu eta **618** artikulutan; ETCn **2.171** agerraldi; orobat* ***esan gura*** *g.er.)* **1** *iz* esanahia.

Sekula ez genuen argituko hitz haien **esangura** . Edorta Jimenez

Gogoan izan zerua [...], bai Testamentu Zahar eta Berrian eta bai rabbitar literaturan ere, maiz 'Jainkoa' **esangurarekin** erabiltzen dela, errespetuz haren izen santua ez aipatzeko. Xabier Kintana

Adam-en izen generikotik heldua da, halaber, 'gizaki, pertsona' **esanguraz** , georgierazko *adamiani* hitz eratorria ere. Xabier Kintana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

"Jainkoa, Lehen Kausa" perpausaren **esangura** filosofikoa. Xabier Kintana

Hemen, *nabi* 'profeta' ez da hitzaren **esangura** zehatzean hartu behar, Israelen inoiz honelakoak izan ziren arren. Xabier Kintana

Gay hitza *alai* da, antzinako **esanguran** . Edorta Jimenez

3 garrantzia, eragina.

Diodan honek, berez "Fernandoren egia" den arren, badu gaur egun bere **esangura** eta mamia. Koldo Zuazo

60ko Iraultzaren **esangura** handitu egiten da, baldin eta abiaburua zein izan zen kontuan hartzen bada, hau da, baldin eta 50eko hamarkadan gauzak nola zeuden ikusten bada. Koldo Zuazo

Hurrengo urtean beste erabaki hauek hartu ziren, biak **esangura** handikoak euren txikian. Koldo Zuazo

Eragin eta **esangura** handiko lagunak zeuden batasunaren aurka. Koldo Zuazo

Egoera beltz eta zail hartan euskara batuak aurrera egin izanak badu bere **esangura** berezia. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere esangura (7); **esangura azaldu** (4); **esangura bat** (3); **esangura bera** (5); **esangura berezia** (11); **esangura dauka** (3); **esangura ere** (3); **esangura eta** (10); **esangura hartu** (3); **esangura honekin** (3); **esangura sakona** (3); **esangura ulertu** (3); **eta esangura** (11); **eta horren esangura** (3); **haien esangura** (4); **haren esangura** (5); **hitzaren esangura** (10); **hitzen esangura** (6); **horien esangura** (9); **horrek esangura** (3); **horren esangura** (15); **ren esangura** (3)

---

esanguratsu **1** *izond* esanguraz betea, adierazgarria.

Monografiko gaurkotu bat sofista **esanguratsu** bati buruz. Askoren artean

Buruzagi politiko **esanguratsua** espetxean. Berria - Harian

Gariren ahots **esanguratsua** ere hizpide izan zen prentsaurrekoan. Berria - Kultura

Gertakari **esanguratsua** alderdi askotatik begiratuta. Koldo Zuazo

Ortografia alorrean, ostera, urrats **esanguratsuak** egin ziren, eta horretan, hain zuzen, Iparraldekoak izan ziren bide urratzaile. Koldo Zuazo

-Nire ustez -esan zuen Harryk berehala, Nickek begiratu **esanguratsua** egin baitzion-, Nick oso beldurgarria da. Iñaki Mendiguren

Datozen urteotan ildo horretatik bideratu beharko litzateke ohiko ikasleen kopuruaren beherapenak askatuko dituen baliabideen zati **esanguratsu** bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Juduek ere multzo **esanguratsua** osatu zuten. Koldo Zuazo

Enuntziatua multzo **esanguratsuen** banakatze-hastapena izan beharrean [...], batasun **esanguratsu** horiek espazioan kokatzen duena da. Xabier Arregi

Egunkari txatalak ebakitzen ditut gertakari ezohikoen orrialdetik, eta berri **esanguratsuak** sailkatzen ditut karpeta urdin batean. Javi Cillero

Txostenak datu **esanguratsuak** jasotzen ditu: 1993an lan errentak BPGren %55,4koak izan ziren, eta 2001ean %49,8ra jaitsi zen. Iñaki Heras

Ahalmena baitzuen "ezaugarri **esanguratsuak** " hautatu eta atzemateko. Xabier Olarra

Nire ustez, keinu **esanguratsuak** egin dituzte. Berria - Euskal Herria

Komentario **esanguratsua** egin zuen gero: [...]. Unai Elorriaga

San Andres eguna, oso egun **esanguratsua** da Azkoitian **Esanguratsua** oso Didier Deschamps eta Michel Pavonen kasuak. Berria - Kirola

Pfisterrek oso jokabide **esanguratsua** , eta aski eztabaidagarria, hartu zuen bere liburuan. Josu Zabaleta

Ez dago haren ideiekin ados egon beharrik lan handia eta **esanguratsua** egiten ari direla onartzeko. Askoren artean

ELanaldia murrizteko legea ezkerreko gobernuaren (1997-2002) erreforma **esanguratsuenetako** bat izan zen. npresek soldata igoera **esanguratsuak** soilik gidari eta sanitarioentzat eskaini dituzte. Berria - Ekonomia

San Andres eguna, oso egun **esanguratsua** da Azkoitian. Berria - Kirola

Oso modu **esanguratsuan** erantzuten dio, hitz hauekin: Batek bizitzarekin zer egin ez jakitearen, plan bat ez izatearen, galdurik, brujularik gabe, norarik gabe aurkitzearen larritasuna, etsimena du. Josu Zabaleta

Batzuetan aztarna txiki baina **esanguratsuetan** saiatzen naiz haien izaerak zehazten. Pako Aristi

Kristau Elizaren sorrera hartzen badugu, eta esanahi eta erabilera sekularretik erlijiozkora izandako hitz-transferentziak emandako froga ahul baina **esanguratsuak** aipatzen baditugu, filologiaren lekukotasunak ikuspegi hau oinarritzen duela aurkituko dugu. Iñaki Mendiguren

Ikerketa horiek kontraste **esanguratsuak** eta interesgarriak erakusten dituztela. Berria - Gaiak

Oposizioak porrota onartzen badu, kontrapisu **esanguratsua** izan daiteke. Berria - Mundua

Ez koska deigarria baina bai **esanguratsua** niretzat. Ana Urkiza

Zure helbide berria ezin daiteke izan **esanguratsuagoa**. Ramon Etxezarreta

Bi eratako entzuleengan pentsatuz dago idatzia: aipatutako "profesional" horiek osatzen dutena batetik eta, askoz ere modu **esanguratsuagoan**, publiko aditu baina profanoak osatzen duena bestetik. Santiago Iruretagoiena

Iraultza kopernikarra dugu, esaterako, paradigma-aldaketaren adibiderik **esanguratsuena**. Patxi Altuna

Europako jokalaririk **esanguratsuenez** gain, munduko beste batzuk ere lehian ikusteko aukera izango da. Berria - Kirola

"Gramatikala" kontzeptua ezin da semantikako **"esanguratsua"** edo "adierazgarria" kontzeptuekin berdindu. Itziar Laka

Gizadiaren alde altxatu zuen kopa eta, topaldikoa edan zutenean, leiho bat zabaldu zuen, **esanguratsu**. Irene Aldasoro

2 (izan eta kideko aditzekin)

Esanguratsua da, horren harira, 1853an, Antoine Abadiek lehenengo Euskal Jaiak antolatu zituenean, "Les regrets d'un basque en partence pour Montevideo" izatea poeta eta bertsogileei lehiaketan parte hartzeko jarri zitzaien gaia. Koldo Zuazo

Gure ikerketa honen xederako **esanguratsua** da hirugarren belaunaldiko zibilizazioa. Iñaki Mendiguren

Bitxia eta aldi berean **esanguratsua** da Sacamantecasekin gertatutakoa. Bernardo Atxaga

Horregatik, **esanguratsua** izan da lapurtarren garaipena, batez ere, gorantz egin dezaketela sinesteko. Berria - Kirola

Sei presoen gutuna **esanguratsua** dela uste dute alderdi gehienek. Berria - Euskal Herria

Zeren oharpena zen?... zertan zen **esanguratsu**?... doktoreak ez zekien ziur-ziur, baina zerbaiten zain zegoen nolanahi ere. Josu Zabaleta

Euskal Herriari buruz esaldi bat baino ez zuen esan, baina erabilitako terminologiagatik nahiko **esanguratsua** izan zen. Berria - Euskal Herria

Jaitsiera handiena Gipuzkoan izan zen (- %3,5), nahiz eta Araban ere **esanguratsua** izan zen murrizketa (- %2,6). Berria - Ekonomia

Emaitzak **«esanguratsuak»** dira Herrizaingo sailburuaren arabera: «Protokoloa ezarri genuenetik, torturagatik salaketarik ez da izan Ertzaintzaren aurka». Berria - Euskal Herria

Agintarientzat **esanguratsu** diren liburuak eta lema desegokiak dituzten kamisetak. Jokin Urain

Honelako galderak ez dira gorago itxuratu dugun ikerkuntza egitasmorako **esanguratsuak**. Itziar Laka

Gogoak desberdintasun material honi eusten dio, desberdintasun hori **esanguratsu** bihurtzeko. Isabel Arrigain

Bereizketa sortu berriak **esanguratsu** bilakatzeko joera agertuko du, nahiz ez beti -ezta hasieratik ere- ez lortu. Isabel Arrigain

Une hartan ez nion garrantzirik eman gertatukoari; gerora hasi zitzaidan **esanguratsua** begitantzen. Joxerra Garzia

3 (adizlagun baten eskuinean)

Europako ezkerrak, oro har, emaitza bikainak lortu ditu eta Italian, Rifundazione Komunista Alderdiaren emaitzak bereziki **esanguratsuak** izan dira, %6a gainditu. Berria - Mundua

Hala ere, politikoki **esanguratsua** da, Luxenburgoko Auzitegiak esan baitie estatuei ezin dituztela arauak nahierara aldatu, Batzordearen autoritatea albo batera utzita. Berria - Ekonomia

Kristau ortodoxoek otomandar nagusiengandik Mendebaldeko auzokoenganako kultur leialtasunean egin zuten aldaketaren hasiera-data janzkeran izandako aldaketen adierazle psikologikoki **esanguratsuak** aldarrikatzen du. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide esanguratsua (4); **adibide esanguratsua da** (4); **adibiderik esanguratsuena** (3); **aldaketa esanguratsu** (3); **aldaketa esanguratsua** (9); **aldaketa esanguratsuak** (5); **aldaketa esanguratsurik** (5); **aski esanguratsua** (5); **aurrerapauso esanguratsuak** (3); **baina esanguratsua** (8); **baina esanguratsua da** (4); **batzuk oso esanguratsuak** (3); **benetan esanguratsua** (3); **bezain esanguratsua** (3); **da esanguratsua** (5); **da esanguratsuena** (3); **data esanguratsu** (4); **datarik esanguratsuenak** (3); **datu esanguratsu** (9); **datu esanguratsu bat** (8); **datu esanguratsua** (13); **datu esanguratsua da** (9); **datu esanguratsuak** (10); **datu esanguratsuenak** (3); **datua esanguratsua** (3); **datua esanguratsua da** (3); **datuak esanguratsuak** (9); **datuak esanguratsuak dira** (9); **dira esanguratsuak** (3); **dira esanguratsuenak** (3); **emaitzak esanguratsuak** (3); **erabakirik esanguratsuenak** (3); **ere esanguratsua** (11); **ere esanguratsua da** (8); **ere esanguratsuak** (4); **ere esanguratsuak dira** (3); **esanguratsu bat** (39); **esanguratsu bat ere** (4); **esanguratsu baten** (4); **esanguratsu batzuk** (9); **esanguratsu eta** (14); **esanguratsu hau** (3); **esanguratsu hori** (3); **esanguratsua bada** (3); **esanguratsua baita** (3); **esanguratsua da** (118); **esanguratsua da hori** (4); **esanguratsua da oso** (5); **esanguratsua dela** (12); **esanguratsua den** (4); **esanguratsua du** (3); **esanguratsua egin** (8); **esanguratsua egiten** (3); **esanguratsua eman** (3); **esanguratsua eta** (5); **esanguratsua gertatu** (3); **esanguratsua iruditu** (3); **esanguratsua izan** (33); **esanguratsua izan da** (4); **esanguratsua izan daiteke** (6); **esanguratsua izan zen** (12); **esanguratsua izango** (6); **esanguratsua izango da** (4); **esanguratsua izatea** (3); **esanguratsua lortu** (3); **esanguratsua oso** (3); **esanguratsua zela** (3); **esanguratsua zen** (12); **esanguratsuak dira** (35); **esanguratsuak ditu** (4); **esanguratsuak egin** (9); **esanguratsuak eta** (6); **esanguratsuak ez** (4); **esanguratsuak gertatu** (3); **esanguratsuak izan** (10); **esanguratsuak izan ziren** (3); **esanguratsuak izango** (3); **esanguratsuen artean** (3); **esanguratsuena da** (3); **esanguratsuena zera** (3); **esanguratsuenak aukeratu** (3); **esanguratsuenen zerrenda** (3); **esanguratsuenetako bat** (6); **esanguratsurik izan** (3); **esanguratsutzat jo** (4); **eta esanguratsua** (11); **eta esanguratsua da** (4); **eta esanguratsuak** (9); **eta esanguratsuena** (5); **eta oso esanguratsua** (3); **forma esanguratsua** (8); **guztietan esanguratsuena** (3); **guztiz esanguratsua** (4); **hartze esanguratsua** (3); **hori esanguratsua** (5); **hori esanguratsua da** (3); **izen esanguratsu** (3); **jokalari esanguratsu** (5); **jokalari esanguratsuak** (4); **kopuru esanguratsua** (3); **kopuru esanguratsuak** (3); **kopurua esanguratsua** (3); **lan esanguratsua** (3); **lorpen esanguratsuenen** (3); **lorpen esanguratsuenen zerrenda** (3); **modu esanguratsuan** (4); **nahiko esanguratsua** (3); **oso esanguratsua** (23); **oso esanguratsua da** (13); **oso esanguratsuak** (19); **oso esanguratsuak dira** (6); **parte hartze esanguratsua** (3); **pasarte esanguratsu** (3); **pasarte esanguratsuenak** (3); **politiko esanguratsu** (4); **politiko esanguratsua** (3); **presentzia esanguratsua** (3); **toki esanguratsua** (3); **urrats esanguratsua** (5); **urrats esanguratsuak** (5); **urrats esanguratsuak egin** (3); **zuen esanguratsu** (3)

---

esanguratsuki *adlag* era esanguratsuan.

Jeep pare bat zeuden bailara zabaltzen den parajearen aurreko zintzurrean, Fagusetiako jendeak **esanguratsuki** "atea" deitzen duen tokian, parajea bataiatu zuen hizkuntza eta are ia horren memoria ere galdu duten arren. Jon Alonso

---

esanguratsutasun *iz* esanguratsua denaren nolakotasuna.

Esan nahiko da arrazoi gisa, ez dela gertaera bat, emaitza bat baizik; baina benetan gertaera bat da bere ordenean;... aurkakotasunaren benetako balio ezagutzea eragozten duena, haren **esanguratsutasun** urria da. Isabel Arrigain

---

esanka ik **esan 2**.

---

esankizun *iz* esateko gaia.

Kartela berrirakurtzean, Genet-en aipua, kaligrafia desberdinez zatikatua, ez zitzaion horren dramatikoa iruditzen; **esankizunaren** muina beratu balitz bezala. Iñaki Zabaleta

Mamirik gabeko hitzak, soinu hutsak zitzaizkion hasieran Genet-en esaldiak, baina denboraz, hausnartuz, euskaraz edo erdaraz bezain **esankizun** bihurtu zitzaion *Funeral*

Rites, Bernard Frechtman itzultzailearen eskutik. Iñaki Zabaleta

Bete agindua akatsik gabe eta **esankizunik** sortu gabe, Jesu Kristo gure Jauna agertuko den arte. Elizen arteko biblia

---

esankor *izond* esanguratsua.

Michaud anderea aparta aritu zen afinazioan, baita esaldikapen lasai eta **esankorretan**. Berria - Kultura

---

esantsu *ad* gutxi gorabehera esana.

Horrekin **esantsua** dizuet: kontserbatismoa, periferiako eskualde "atzerakoietan" bereziki sendotua egoten zena, razionalismo modernoaren etsaia da, haren ume liberalismoarena orobat, iraultza liberalarena hortakoz. Joxe Azurmendi

---

esanzale *iz* adierazten dena esateko zalea.

Nekazariak, ordea, ez dira gezurra **esanzale**. Pako Aristi

---

esapide **1** *iz* esaldia, eskuarki zerbait berezi adierazten duen hitza edo, batez ere, hitz multzoa.

Hizkuntzaren ikerkuntzan, gramatika eta gramatikaren teoria da axola duena, ez hizkuntza eta **esapideak**. Itziar Laka

Irudi, ideia, metafora, **esapide** asko dago hiztegien eta ezpainen bidegurutzeetan guk noiz jaramon egingo. Anjel Lertxundi

Fernand Braudelek proposatu zuen *économie-monde* kontzeptua itzultzeko, *mundu-ekonomia* **esapidea** hautatu dugu, halaxe erabili izan baita euskaraz. Koro Navarro

Hitzei buruzko jardun horrek hitzak osatzen dituzten silabez eta hizkiez aritzea dakar berekin, eta hitzak batuz sortzen diren **esapideez** ere. Iñaki Arranz

Hitz berbera errepikatuaz, eta bigarrenari aldakuntzatxoren bat eginez, sortzen dituelako euskarak hitz berriak: esamesa, zurrumurru, nahas-mahas... eta eredu horrexeri jarraitzen dio iltzez eta giltzez **esapideak** ere. Koldo Zuazo

Metodo taxonomikoek hiztunaren **esapideak** aztertzen zituzten; *Syntactic Structures* eta *The Logical Structure of Linguistic Theory* liburuetako hizkuntz teoria, ordea, hiztunak **esapideak** sortzera bultzatzen dituzten printzipio orokorrez arduratzen zen. Itziar Laka

"Normandiar armairu baten pareko soina", hire **esapidea** zuan hori. Jon Muñoz

Ingelesez, *home* **esapideak** adiera bi ditu: "norberaren etxea, bizilekua" batetik, eta [...] "etxera" adiera ere bai. Itziar Laka

Hortik izena, *muta-cum-liquida* **esapidean** asko zabaldu zena filologia eta hizkuntzalaritzako lanetan. Lourdes Oñederra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Izan ere, **esapide** talmudikoak dioen bezala "ez ditugu gauzak diren bezala ikusten, gu garen bezala ikusten ditugu". Iñaki Heras

Garai hartan pentsatzen dudanean, honelako **esapide** literarioak datozkit burura, "itxuren zeharkaldia", "ongiaz eta gaizkiaz haraindi" edo "gauaren muturrerainoko bidaia". Joseba Urteaga

"Nire eginbeharra bete": bai **esapide** gogor eta antzerki kutsukoa. Ander Irizar

Esapiderik gozoenak eta atseginenak erabiliz azaldu zion nola, ikusi bezain laster, ziztu bizian jo zuen Pavel Ivanovitx besarkatzera. Jose Morales

Norma Lúciak gustura entzuten zituen haien **esapide** lotsagabeak, "mingaina sartuko dizut zirrikitu guztietan, urdangatxo hori" esaterako. Karlos Zabala

Suhar kontatzen ahalegintzen da, **esapide** zaharrak erabiltzen ditu, ziega osoa miragarrizko une batean biltzen saiatzen da. Koldo Izagirre

Gogoko ditu errusiarrak **esapide** gordinak! Jose Morales

Gaitasuna hiztunaren buruko gramatika abiapuntutzat harturik definitzen da; hiztunak sortzen dituen benetako **esapideak**, ordea, ekintzaren arlokoak dira. Itziar Laka

Gutunazalak hareazko erloju baten marrazkia zekarren albo batean, bere latinezko **esapidea** eta guzti: [...]. Anjel Lertxundi

Hitz eta **esapide** bikoitzak. Iñaki Arranz

Izan ere, irri eta mirri bezalako **esapide** lexikalizatuak gogoan, hitz pare berriak sortzea denon eskueran dago. Iñaki Arranz

3 (hitz elkartuetan)

Bada mairurik kostaldean, errotikako konfiantza falta baten herri- **esapide** historikoa. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esapide asko (4); **esapide bat** (5); **esapide bikoitzak** (4); **esapide edo** (3); **esapide hori** (7); **esapide horrek** (3); **esapide horren** (3); **esapidea erabiliz** (3); **esapideak ere** (5); **esapideak eta** (4); **eta esapide** (10); **eta esapideak** (16); **hitz eta esapide** (7); **hitzak eta esapideak** (10)

---

esatari **1** *iz* esaten duena; eskuarki irratian, telebistan etzo kidekoetan berriak eta ematen dituena.

Hedabideetako **esatariak**. Josetxo Azkona

Artetik "speaker" edo **esatari** bat ari da errepikan haur bat badela. Herria

Zuzendari, produktore, errealizadore, **esatari**... hori guztia nintzen ni. Joxerra Garzia

Esataria eta nobelagile bat ari ziren elkarrizketan. Iñaki Iñurrieta

Esatariaren ahots grabea gero: [...]. Anjel Lertxundi

Irratian, **esatariak** Ertzaintzak Bilbon gizon bat atxilotu duela dio, emaztea jipoitzeagatik. Iñigo Aranbarri

Segurtasunekoek bazekiten anaia erresistentzia kurduaren irratiko **esataria** zela. Juan Kruz Igerabide

Helenen eta telebistako **esatariaren** hitz ulertezinak iristen dira gelara. Lutxo Egia

Ez errepidera atera, zioen **esatariak**, ez errepidera atera behar den telefonoetan informatu gabe, edo hobeto oraindik, geratu lasai etxean gure saioa entzuten. Bernardo Atxaga

Esatariak galdetu zion ea nolatan moldatzen zen hainbeste sufritu eta gero. Josetxo Azkona

Fabio Capello eta Pavel Nedved **esatari** ariko dira izotz hockeyan. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ekitaldiak musikazale eta irrati **esatari** ezaguna izango du aurkezle: Pello Zabala. Berria - Kultura

Esatari euskaldun bat aurkitzeko eskatu zion Leblancek Batasunari. Berria - Euskal Herria

Radio France International irratiko **esatari** ohiak mundializazioari buruzko liburua atera berri du Ignacio Ramonetekin batera. Berria - Mundua

Gogoan dut Susana Mujika **esatari** artistak, galderak egiteko trebeziaz aparte, nolako doinu dotoreak ipintzeko eskua eta bihotza zuen. Pello Zabala

Lehen urte haietan Mari Karmen Odriozola ordiziar **esatari** finarekin moldatu nintzen solas errazean gustura. Pello Zabala

Bitxia baita Gasteizko Ogetan Gallastegi txapeldun handia alboan hartuta bozgorailuetatik musika tekno ingeles doinukoa entzutea, [...] edo askotan haien jarduna jarraitzen duten kazetariekin zenbait pilotari horren aldarte txarreko agertu eta finaleko egunean **esatari** bitxienari eta galdera ez hanka ez burudunari horren aldarte oneko erantzutea. Berria - Kirola

Hannak alemanezko **esatari** gisa lan egin zuen BBC-n. Joxe Austin Arrieta

Loritoen moduan, etengabe errepikatzen zuen mutil kozkorrak leloa, telebistako **esatari** esdrujuloaren enfasia parodiatuz. Joxerra Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ramos Mejía ikastetxeko **esatari**-ariketak gogoraturik, zutik jartzen zen parabolak predikatzeko. Juan Garzia

Horkoetan, irratian lankide izandako **esatari** ahots eztikoa. Joxerra Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lau olerki-**esatariek** elkarri txanda hartzen diote, aldi berean musikariek jotzeari utzi gabe dihardutelarik. Edorta Jimenez

Zakurrentzako pentsua edo legami hautsak edo nik al dakit zer goraipatzen jardundako irrati **esatari** guztiak, derrepente, isildu egiten dira. Joxe Austin Arrieta

Albiste-**esataria** berriro agertu zen. Iñaki Mendiguren

-Eta hemen dira Gryffindorrekoak! -oihu egin zuen Lee Jordanek, ohi bezala **esatari**-lanak eginez-. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esatari bati (4); **esatari euskaldun** (3); **esatariaren ahotsa** (3); **esatariaren hitzak** (3); **eta esatari** (4); **irrati esatari** (7); **irrati esatariak** (5); **irratiko esatari** (8); **irratiko esataria** (5); **irratiko esatariak** (3); **telebistako esatari** (3); **telebistako esataria** (3); **telebistako esatariak** (5)

---

esateke *adlag* esan gabe.

Hainbat gauza esan daitezke orain berari buruz; beste hainbeste, aldiz, **esateke** geratuko dira. Aritz Gorrotxategi

Otegi Batasuna auzian prozesatuko duen edo ez **esateke** du oraindik epaileak. Berria - Harian

Lizasok bere azken hitza **esateke** zuen, eta errebotea bilatuz aurkariaren parera jarri zen 30-30. Berria - Kirola

Neska inguratu egin zen ate ondoraino eta une horretantxe -ordurako, beste biak, pausoak bizkortuz bere atzean baitzeuden-, ezer **esateke**, bultza egin zioten barruraino. Joxemari Iturralde

Emakumeek, elkarri ezer **esateke**, salako aurkikuntzaz liluraturik, tresnak joka hasi ziren afinatze aldera. Felipe Juaristi

Ondoren, ezer gehiago **esateke**, hasi zaio musu laburrak ematen aurpegitik ezpainetara iritsi arte. Joxemari Iturralde

Emakume lodiak, kaleko freskuran, begiratu egingo didate pasaeran, hitzik **esateke**. Eskarne Mujika

Gogoan dut aldi hartan egun eta erdi egon nintzela etxean hitzik **esateke** eta Jonathanek, esan zuenez, ia astebete iraun omen zuen amarekin mutu. Berria - Kultura

Berehala aldatu zuen, txintik **esateke**, ilehoriaren eskaria agindutzat hartuta. Migel Angel Mintegi

Danek, furgonetaren gainaldetik, begirada sutu eta sarkorra luzatu dio, eta isilean jarraitu du Adelak, txintik ere **esateke**, pasatu dion gurpilekiko maleta kokatzen. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ere esateke (3); **ezer esateke** (7); **hitzik esateke** (4)

---

esaustiboki ik **exhaustiboki**.

---

esaustibotasun ik **exhaustibotasun**.

---

esbastika *(orobat **esvastika** g.er.) iz* lau beso berdin eta 90 graduko angeluan tolestuak dituen gurutzea.

-Lauburua ez da **esbastika**. Alberto Ladron Arana

Zerbait esate aldera, eta aspertuta nengoelako, galdetu nion ea ez al zuen ikusten arriskurik lauburua **esbastikatzat** har zezaten. Ramon Saizarbitoria

Hor konpon eliza eta hor konpon gurutzea; **esbastikak** salbatuko du mundua. Anjel Lertxundi

Basapiztia ilehoriek bata bestearen atzean harilkatzen zituzten garaipenak, beren **esbastikaren** azpian, eta mundu erdia haien beldur zen. Fernando Morillo

Iragan astean Savernen **esbastikak** eta 666 ikur satanikoa margotu zituzten hilobi juduetan. Berria - Mundua

Agirietako batean **esbastika** eta arranoaren ikurrak nire aurpegiaren erdia hartzen zuen. Alberto Ladron Arana

Erasoak nonahi gertatu ohi dira: **esbastikak** Lyongo judu hilerriko 60 hobitan; Seine Saint-Denisen, talmud ikastetxearen inguruetan, [...]. Iñigo Aranbarri

Mahaiak elkarren ondoan jarrita zeuden, eta haien inguruan eserita arropa zuriz jantzitako gizon batzuk, sendagileak edo ordenantzak ziruditenak, mahuketan **esvastikak** zituztela denak. Koro Navarro

Gangaren erpinean harrizko **esbastika** bat zegoen. Alberto Ladron Arana

SSetako buruzagiak **Esbastikaren** Kriptan giltzapeturik egonen ziren. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esbastikaren kriptan (3)

---

esbastikadun *izond/izlag* esbastika duena.

Goialdeko terraza lauan bi bandera mugitzen ziren haize nagian: bata Reicharena, zuri-gorria, **esbastikaduna**. Alberto Ladron Arana

Charlie Parker, Dizzy Gillespie eta 52. kaleko gainerako jazz musikari guztiak Wagner jotzen jarriak zituen orain, zuriz jantzita, **esbastikadun** besoko bana, Radio City Halletik zuzenean emititzen. Harkaitz Cano

---

esegi ik **eseki**.

---

eseki, esekitzen *(orobat **esegi** g.er.)* **1** du *ad* eskegi, zintzilik jarri.

Telefonoa **eseki** eta armairutik kapusai bat atera zuen. Lopez de Arana

Bere amaren logelara oin-puntetan itzuli, gerruntzea eta jantzia jaso eta armairuan **eseki** zituen. Lopez de Arana

Hala, eguna argitzen hasi zuenean, Holofernesen burua hartu eta harresian **eseki** zuten betuliarrrek. Jose Antonio Mujika

Horrela jakin omen zuen ikurrina Artxandan **eseki** zuen gaztearen berri. Javi Cillero

Sethek bere kapela kako batean **eseki**, eta gizalegetsu jiratu zen neskagana. Anton Garikano

Egun bakar batean dena kenduko lidakete, berokia **esekitzeko** iltzerik ere ez lukete utziko. Jose Morales

Gortinak **esekitzen** ari naiz. Lopez de Arana

Kablea nola **esegi** da haietako bat. Berria - Gaiak

Eta, erlikiontzi iduriko hura lepotik **esekitzen** zidala, kapitainak erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

-Nik masta nagusitik **esekiko** nituzke, benetan. Lopez de Arana

Azkeneko hitzen durundia **esekirik** bezala geratu zen airean, nire burutazioen haize zakarren guztiro mende. Anjel Lertxundi

Saguzarrak leku epel samarrak bilatzen ditu negua pasatzeko; buruz behera **esekita** jartzen da, ahalik eta kuxkurtuen eta hegaletan bil-bil eginda. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maindireak kentzeari ekin dio agureak, eta altzariekin batera, paretetan **esekitako** margolanen aurpegi olioztatua azaltzen hasi da. Javi Cillero

Florent, aurpegia burdin sareen kontra ipinita, **esekitako** gorputz sabel-irekien lerro haiei begira zegoen. Karlos Zabala

Ezagutzen ditut aitaren gudakide ohiak, Ministerioko kargudunak eta armadako zakurtzarrak, dirua eta apeta nahikoa izango luketenak halako margolana beren saloi pribatuetan **esekitzeko**. Javi Cillero

Beatricek sokaren tormentua jasan behar izan zuen: eskuak atzean lotu eta sokatik **esekita** denbora luzez egon. J.M. Olaizola "Txiliku"

Albertoren logelara sartzean, bi tramankulu begiztatu zituen Elsak hormatik **esekiak**, biak ohearen alde banatan ezarriak. Josetxo Azkona

Etxera sartu da, ganbarara igo, eta, han, sabaitik **esekiak**, bi zaku handi eta lirdingatsu ikusi ditu. Patxi Zubizarreta

Ataria liho eta muselinazko oihalez apaindua zegoen; liho eta purpurazko lokarriz zeuden lotuak urrezko eta zilarrezko eraztunetara, eta marmolezko eta hartzurizko zutabeetatik **esekiak**. Elizen arteko biblia

Baita zetazko mila xingola ere, hango eta hemengo habeetarik **esekiak** eta mila koloretakoak, aire korronteen eraginaz kiribiltzen eta deskiribiltzen zirenak. Joan Mari Irigoien

Hosto gorrituz betetako adar-ertz luze-luze **esekiak** hautematen ez zen haize baten arabera higitzen ziren. Ibon Uribarri

Iparraldera jo zuten oinez, ibiltzeak halako lilura galtze bitxi bat sentiarazten ziela, hiriak bere argi-globo zurbilak **esekiak** zituela goian, uda-arratseko argi-gandutan. Irene Aldasoro

2 irud/hed

Apaizek errazago **esekitzen** dute sotana beren integrismoa baino, eta orain "festa bai, borroka ere bai!" egiten digute aldarri. Anjel Lertxundi

Nyland jaunak Interneten **eseki** duen liburuan azaltzen duen teoria (www.islandnet.com) eta, batez ere, antzinako irlandar eta eskoziarren Ogam idazkera enigmatikoa euskararen bidez dezifratzea. Berria - Kultura

3 urkatu.

Akaso nire hesteek emango ditek hi ere **esekitzeko** adina! Inazio Mujika Iraola

4 (era burutua izenondo gisa)

Zubi **Esekiaren** sarreran daukagu hitzordua: Areetako aldean. Lehenbizi, zilarraren distira biziak eta zuritasun mateak ageri ziren, erloju lerrokatuak, kate **esekiak**, mahai tresna gurutzatuak, godaletak, toxak, ezpainzapitakoak, orraziak, denak apaletan paraturik. Rafa Egiguren

Arratsaldeko hirurak ziren ostiral hartan, hain heze eta beroa ezen Cincinnatiko kiratsa kanpoalderaino zabaldu zen: kanaletik, haragi **esekitik** eta ontzietan usteltzen zeuden gauzetatik. Anton Garikano

Eskuila eskuan harturik nagusiaren frak **esekira** hurbiltzen zen, edo zernahi txukuntzen hasten zen besterik gabe. Jose Morales

Solairuetan halako lorategi **eseki** bana zagok, hotelak, antzokiak, bainu turkiarrak, igerilekuak, biltegiak, berotzeko eta hozteko sistemak eta azoka bat, dena eraikin berean. Lopez de Arana

Etxe eta jauregiak ziruditen, batzuk besteen gainean jarriak, metalezko babilonia bat, arintasun hindukoa, hutsaren gainean egindako terraza **esekiek**, aireko korridoreek, zubi hegalariek zeharkatzen zutena. Karlos Zabala

Argiak itzali ondoren ere, Richarden harrokeria **esekia** eta bere pausoen eta bere orpoz orpoko zapaten larru igurtziaren txistu gogaikarria geratu ziren oihal-dendan, luzaro. Harkaitz Cano

· Flanelazko janzkia eta egurrezko **eseki**-uztaia, zapata handi eta deformatuak, kapela marroi bat. Javi Cillero

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batean eseki (4); **batetik eseki** (5); **batetik eseki zuen** (3); **dezala eseki** (3); **eseki aurretik** (3); **eseki du** (3); **eseki egin** (9); **eseki egin nuen** (3); **eseki egin zuen** (3); **eseki eta** (11); **eseki gabe** (4); **eseki nuen** (4); **eseki zituen** (3); **eseki zuen** (22); **eseki zuten** (4); **esekia eta** (3); **eta eseki** (10); **eta eseki egin** (5); **ez dezala eseki** (3); **ez eseki** (3); **gabe eseki** (3); **iltze batetik eseki** (3); **telefonoa eseki** (21); **telefonoa eseki eta** (3); **telefonoa eseki zuen** (8); **zubi esekia** (4); **zubi esekiaren** (3)

---

esekiarazi, esekiaraz, esekiarazten **1** du *ad* esekitzera behartu.

Tournebride karrikako 16an, Urbain kapelagileak, kepisetan espezializatuak, apezpikuen kapela gorri erraldoi bat **esekiarazi** du ikur gisa, eta haren urrezko borlak lurretik bi metrora daude dilindan. Monika Etxebarria

2 urkarazi.

Britainiar militarrak eta hauen colabo ziren amerikarrak preso hartu, eta epaiketarik gabe **esekiarazten** zituelako zor dio juje jaunari justizia praktikatzeko manera honek, antza, izena eta izana. Iñigo Aranbarri

---

esekidura **1** *iz* ibilgailuetan, bastidorearen eta gurpilen artean, zoruko gorabeheren eragina moteltzeko, jartzen diren gailuen multzoa. ik **suspentsio**.

Autoak zurruntasun hobea du, eta atzeko **esekidura** behar bezala erantzuten hasi da. Berria - Kirola

Finlandiarraren autoaren atzealdeko **esekidurak** huts egin zuen. Berria - Kirola

Aurreko eskuin **esekiduraren** triangelu batek kolpearen ondorioz Sennaren kaskoa zulatu zuen, eta heriotza eragin. Berria - Kirola

Ezin da ulertu nola horrelako lurreratze-tren bat, bi pneumatiko-parez osatua, hodi-txasisean **esekiduraz** hornitua eta bere metal distiratsua ongi koipeztatua daukana, behar den bezala, ezin da ulertu, alegia, zergatik hasi behar duen, ez bat eta ez bi, deabru baten gisa portatzen zorua ukitu orduko. Joxe Austin Arrieta

2 ***esekiduran*** *adlag* isurkari batean dauden partikula solidoez mintzatuz, disolbatu gabe eta hondora joan gabe.

Likido batean **esekiduran** zegoen partikula baten batez besteko ibilbidea neurtu zuen. Berria - Harian

Robert Brown botanikari eskoziarrak gauza harrigarria ikusi zuen mikroskopioan 1827an: uretan **esekiduran** zeuden polen pinportak dantza ero batean bezala higitzen ziren, eta ez zuen ematen ezerk bultzatzen zituenik. Berria - Harian

---

esekigailu *iz* zerbait, eskuarki arropa, esekitzeko gailua.

Aurreko atea zabaldu da, eta aulki luzeak eta **esekigailuak** zeuden gelara sartu gara. Neska zurbil ilehori eta makillatu bat gelan sartu zen, **esekigailu** batetik soineko bat dilindan zuela. Urtzi Urrutikoetxea

Telefonotik irribarretsu urrundu zen, eta gero, kakotik kapela hartu eta, **esekigailuko** ispilu txikiaren aurrean, kontu handiz ipini zuen buruan. Lopez de Arana

Burutazio gozo bat etortzen zitzaion halakoetan, jantzi-ilara mordoa zain zeukalakoa, artean ere berri-berria, zein bere kretona-azal loretsuz estalita, eta **esekigailu** bernizatuetatik erreskadan zintzilikatuta bere logelako jantzitegian paratuta zituen haga luzeetatik. Mirentxu Larrañaga

Haren urtebetetze-egunak ez ziren bereziki atseginak izaten... aurreko urtean Dursleytarrek **esekigailu** bat eman zioten eta osaba Vernonen galtzerdi-pare zahar bat. Iñaki Mendiguren

Hantxe zeuden halaber basa zetazko jantzi-multzo perla kolorea, zegokion blusarekin, hotel garesti batean lapurturiko zurezko **esekigailu** batean botoiz goitik behera lotua, eta udako soineko laranja. Joxan Elosegi

Jantzitegian, zabal-zabalik baitzegoen, beroki- **esekigailuak** baino ez ziren ageri. Mirentxu Larrañaga

---

esekileku *iz* esekitokia.

Osaba bere kasa hizketan entzun nuen eta **esekilekuak** osabaren berokiaren pisua hartu zuenean egin zuen kulunka entzun nuen. Irene Aldasoro

Goizean goiz altxatu eta beso txuriak ondoko gelako ohetik zintzilik, eta kuleroak baratzeko **esekilekuan**, eta usain berria sukaldean. Alberto Barandiaren

Esekilekuan zebilen buru-belarri kapela-eskuilaren bila eta hotz eta motz erantzun zidan: [...]. Irene Aldasoro

---

esekitoki *iz* zerbait, eskuarki arropa, esekitzeko tokia.

Kapela hark zapala, lohia eta biguna ematen zuen, onddo-kapela tripontzien eta **esekitokietatik** zintzilikatuetako jipijapa kapela dotoreen artean. Lopez de Arana

Jaka eta kapela **esekitokitik** hartu eta zerbitzu-atetik alde egin zuen kalera, zabor-ontzi batzuk atzean utzita. Lopez de Arana

Lastozko kapelak, zetazko xalak eta gizonentzako bi beroki **esekitokiaren** orein-adarretatik zintzilikaturik zeuden, anabasan. Lopez de Arana

Kapelen **esekilekura** begiratu zuen bulegariburuak, baina ilara osorik zegoela ikusirik, ez zuen ezer esan. Irene Aldasoro

---

eseniar *iz* Jesukristoren garaian bizitza aszetikoa eta ondasunen jabego komunitarioa praktikatzen zuen sekta judu bateko kidea.

Eseniarrak monje judutarrak zirela uste da. Berria - Gaiak

Eseniarrek gizakiekin bidez jokatzeko botoa egiten zuten; inori kalte ez egitekoa, ezta obedientziaren kariaz ere; injustuak gorrotatzekoa; mundu guztiaz fidatzekoa; apaltasunez agintzekoa; beti egiaren alde paratzekoa; legez kontrako irabazi orotarik ihes egitekoa. Iñaki Iñurrieta

Yuval Peleg eta Itzhak Magen Israelgo arkeologoen arabera, Itsaso Hileko idatziak ez dira **eseniarrenak**. Berria - Gaiak

---

esentzia **1** *iz* izaki edo gauza bati berezko izaera ematen dioten ezaugarri aldaezinen multzoa.

Existitzen den edozein gauzak Jainkoaren izaera edo **esentzia** adierazten du, modu zehatz eta determinatuan. Piarres Xarriton

Izan ere, haien **esentziak** eta izaerak eskatuko baliete soilki banaturik egoteko, ez lirateke behin ere batuko; eta haien **esentziak** eta egiazko jiteak soilki baturik egoteko eskatuz gero, ez lirateke sekula banatuko. Xabier Kintana

Fededunentzat, **esentzia** da garrantzitsuena, hau da, gizakiak dituen dohain eta tasun multzoa, jainkoak sortuak direlako. Berria - Harian

Euskaldunen joera fundamentalistari kritika egiterakoan, **esentziarik** ez dagoela baieztatu dut, ez dagoela urtez urte eta mendez mende berdinean irauten duen ezer. Bernardo Atxaga

Esentzia bati baiezko eta funtsezko eran egotziriko edozein atributu, biotarik bat: edo **esentzia** bera da, edo bestela **esentzia** horrexen nolakotasuna da. Xabier Kintana

Atributua subjektu kalifikatuaren **esentzia** bera denean, hori tautologia besterik ez da. Xabier Kintana

Funtsean, bizitzaren muinean, bere **esentzian**, ez dago deus oreka geldian, dena baita kontrarioen borroka etenik gabea. Josetxo Azkona

Garbi dakusazu, hortaz, *-em ha-mefôrhori* tetragrammatona dela, Jainkoaren **esentzia** adierazten duen bakarra, beste ezein ere kontzepturi loturik egon gabe, eta horrexegatik esaten da horri buruz: "bereziki dagokidana". Xabier Kintana

Gure gizartearen **esentzia** suntsitu nahi izan dute erasotzaileek. Berria - Harian

Non dago hitzaren **esentzia**? Iñaki Arranz

Jainkoaren atributuetatik "akzidente" izendapena baztertzean, ez da horren ideia ezerezten, **esentziari** gaineratzen zaion guztia, eranskin hutsa izanik, ez baitu bere errealitatea osatzen: horixe da, hain zuzen, "akzidente" hitzaren esangura. Xabier Kintana

Ez duzu sinetsi behar Haren **esentzian** gauza gehigarririk denik, gure **esentziari** eransten zaizkien atributuen antzekorik, atributu mota horien artean izenkidetasun hutsa dagoelako. Xabier Kintana

Gainerako izenez den bezainbatean, horiek guztiok atributuak adierazten dituzte, ez soilki **esentzia** bat, baina atributuak dauzkan **esentzia** bat, eratorriak baitira. Xabier Kintana

Betikoa eta egonkorra, inolako aldaketa motarik ez duena, ez **esentzia** aldatzerik, ez eta bere **esentziatik** kanpoko egoerarekiko aldaketarik ere. Xabier Kintana

Nornahiren Izpirituan egokiak diren ideiak Jainkoarengan ere egokiak dira, Honek Izpiritu horren **esentzia** osatzen duen aldetik. Piarres Xarriton

Giza Gorputzaren **esentzia** espresatzen duen kontzeptua edo ideia Jainkoaren baitan aurkitzen da, nahitaez. Piarres Xarriton

Gizakiaren **esentzia** Jainkoaren atributuen modu jakin batzuek osatzen dute. Piarres Xarriton

Hona amairik gabeko helmugaren **esentzia**. Imanol Unzurrunzaga

Orduan bakarrik da existentzia, eta ez **esentzia** soilik, jainkozko izatasunarekiko loturan eta dependentzian. Piarres Xarriton

Bere baitako kausa deitzen dut, haren **esentziak** bere existentzia barne hartzen duen hura. Piarres Xarriton

Hori da filmaren **esentzia**: gauza txikietatik abiatuta handiagoak lortzea, eta ez alderantziz. Berria - Kultura

Gauzen **esentzia** ezagutzea. Piarres Xarriton

Kristau fedea bera ordea, aipa daiteke bai **esentziaren** aldetik, bai fededunak berak bizi duen existentziaren eta esperientziaren aldetik. Piarres Xarriton

Horretan datza modu finituaren betiera: bere existentzia, jardutearen bitartez, bere **esentziaren** derrigorrezko ondorio bihurtzea. Piarres Xarriton

Idazle oro idazteko sen pixka bat duelako da idazle, ez zuzentasunaren **esentzien** jabe delako. Anjel Lertxundi

[Jainkoaren] egintzak soilki haren **esentziaz** burutzen dira, eta ez ezein organoren bitartez. Xabier Kintana

Arrazoimenarentzat, aitzitik, ona edo txarra **esentziaz** esaten dira, gizakiak izatasunez desiratzen duen horretaz. Piarres Xarriton

Egia da **esentzia** bakarrak askotariko egintzak bete ditzakeela, baina Jainkoaren (gorets bedi!) **esentziazko** atributuak ez datoz Haren egintzetatik, ez bailitzateke onartzekoa Sortzaileak bere burua sortzea. Xabier Kintana

Jakin behar duzu Jainkoak (gorets bedi!) ez duela **"esentziazko"** atributurik bat ere, inolako baldintzarik gabe; eta Hura gorpuzduna izatea ezin onar daitekeen bezala, ez da onartzekoa, halaber, Berak **esentziazko** atributurik ukaitea. Xabier Kintana

Nola jalgidura miragarri haiek distiratzen duten Hirutasunaren esan ezinezko atseginean: Hirutasun berean eta **esentziazko** batasunean. Joan Mari Lekuona

Dei dagiote batasunari eta egiaz esan ezinezko ilunbea da, baina argitasun **esentziazkoa**; basamortua deitzen zaio eta arin zeharkatzen da hegaldi bat bailitzan. Joan Mari Lekuona

Ezagupen maitatia, atsegina eta **esentziazkoa**. Joan Mari Lekuona

Utz ezazu bidea joatera eta gauzek beren izaera propioan segituko dute; **esentzian** deus ez da mugitzen, deus ez da geldo geratzen. Itxaro Borda

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jainkoa bere **esentzia** garbi eta jainkozkoan. Joan Mari Lekuona

Kreatzailearen zoriona, Jainkoa bera da, Izpiritu huts dena eta mugarik gabeko gozoarekin ezagutzen eta maitatzen dituena bai bere burua bai bere kreatura guztiak, beren **esentzia** hutsarengatik. Piarres Xarriton

Berdintasunak izan daitezke, egoera sozial, kultural eta ekonomikoetarik eratorriak, ez **"esentzia** femeninotik" etorriak. Ana Urkiza

Arrazoimena ez da gai **esentzia** singular horren ideiara iristeko. Piarres Xarriton

Jainkoaren ahalmena beste deusik ez dela Jainkoaren **esentzia** eragilea baizik. Piarres Xarriton

Esentzia gorena delako sortzen du izate oro, horregatik deritzo esentzia. Imanol Unzurrunzaga

Gauza bakoitzak bere izanean irauteko egiten duen ahalegina ez da gauza horren **esentzia** aktuala besterik. Piarres Xarriton

Esentzia mugagabea eta betierekoa adierazten duten substantziaren atributuak. Piarres Xarriton

Gorputz hori **esentzia** betegin eta gorena dela aitortzen du, behin ere osatua izan gabea, inoiz aldatzen ez dena eta ezin aldatuzkoa dena. Xabier Kintana

Argi erakutsi dugu zer nolako ezberdinak diren norbait gauza baten existentziaren noziora eramatea eta pertsona hori horren egiazko **esentzia** eta substantzian sakontzen jartzea. Xabier Kintana

Jainkoa deitzen dut, absolutuki mugagabea den izakia: hau da kontaezinezko atributuek osatzen duten substantzia, atributu bakoitzak mugagabeko eta betiereko **esentzia** adierazten duelarik. Piarres Xarriton

Ez da ezin onartuzkoa, Sortzaileaz (goratu eta handietsia izan bedi!) ari garela, askotariko egintza horiek ere **esentzia** bakun bakarretik helduak izatea. Xabier Kintana

Absolutuki mugagabea den izakia baitezpada definitu behar dela [...] kontaezinezko atributuek osatzen duten izakia bezala, atributu bakoitzak mugagabeko eta betiereko **esentzia** jakin bat adierazten duelarik. Piarres Xarriton

Jainkoaren **esentzia** betierekoa eta mugagabea. Piarres Xarriton

Pentsamenduaren **esentzia** absolutu eta betierekoa adierazten duen atributu bat. Piarres Xarriton

Horregatik ez dago inolako **esentziarik**, **esentzia** gorenaren kontrakorik, hots, **esentzia** ororen egilea den Jaungoikoaren kontrakorik. Imanol Unzurrunzaga

Haren jardunaren zintzotasun gaindiezinak erruz aseko ditu baserria euskal **esentzien** gordailutzat duten irakurle politikoki zuzenak. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan)

Herri espainolaren barne- **esentzia** eternal hori da denboragaindiko intrahistoria bezala metaforizatu duena Unamuno-k. Joxe Azurmendi

4 landareetatik ateratzen den isurkari lurrunkor usaintsua, perfumegintzan erabiltzen dena.

Turkiatik ekarritako **esentzia** eta usainak zituen Èpicerie haren errua izango zen akaso, baina kanela usaina zegoen Chocimska karrikan. Harkaitz Cano

Perfumeak daude komunean, **esentziak**, heliotropo **esentziak**, *La nuit bleue.* *Joseba Sarrionandia*

Ezkaia eta beste usain-belar batzuk biltzen zituzten, aroa zenean, handik ez oso urrun baitzegoen destilategi bat, han Laujarren, non ezkai **esentzia** destilatzen baitzuten. Joan Mari Irigoien

Aromaterapia emanaldi bat (Landare **esentzien** erabilpena) eskaintzen dautzuete udaberria aintzin, organismoaren garbiketa on bat egitea eta uda aintzin larrua prestatzea. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bai esentziaren (6); **bai esentziaren aldetik** (3); **bai esentziaren bai** (3); **baten esentzia** (9); **beraren esentzia** (5); **bere esentzia** (13); **bere esentziaren** (5); **bestearen esentziarekin** (3); **bestearen esentziarekin duen** (3); **betiereko esentzia** (4); **da esentzia** (5); **edo esentzia** (14); **egiazko esentzia** (6); **esentzia adierazten** (10); **esentzia adierazten duen** (5); **esentzia bat** (15); **esentzia bat eta** (5); **esentzia bera** (27); **esentzia bera da** (11); **esentzia besterik** (3); **esentzia bezala** (4); **esentzia da** (3); **esentzia dela** (4); **esentzia edo** (7); **esentzia edo izaera** (3); **esentzia eta** (15); **esentzia ez** (7); **esentzia gauza** (4); **esentzia gorets** (3); **esentzia gorets bedi** (3); **esentzia halako** (4); **esentzia halako betierekotasun** (4); **esentzia hori** (8); **esentzia horren** (3); **esentzia mugagabe** (7); **esentzia mugagabe eta** (7); **esentzia nazional** (3); **esentzia osatzen** (15); **esentzia osatzen duela** (3); **esentzia osatzen duen** (8); **esentzia singular** (3); **esentzia soilaren** (5); **esentzia soilaren bidez** (3); **esentziak bestearen esentziarekin** (3); **esentziak bestearen esentziarekin** (3); **esentziak eta** (4); **esentziak ez** (4); **esentziak ez du** (4); **esentziarekin duen** (3); **esentziarekin duen ezberdintasuna** (3); **esentziaren aldetik** (5); **esentziaren arabera** (3); **esentziaren bai** (4); **esentziaren bai existentziaren** (3); **esentziaren beraren** (4); **esentziaren eta** (5); **esentziaren ezagutza** (3); **esentziaren kausa** (4); **esentziari dagokio** (4); **esentziari dagokiola** (5); **esentziari erantsiriko** (4); **esentziarik ez** (4); **esentziatik kanpoko** (5); **esentziazko atributu** (3); **esentziazko atributuak** (5); **espainiaren esentzia** (4); **espainolaren esentzia** (3); **eta bere esentzia** (3); **eta betiereko esentzia** (3); **eta esentzia** (16); **eta esentziaren** (3); **eta esentziazko** (3); **eta esentziazkoa** (3); **eta honen esentzia** (3); **ez esentzia** (4); **ez haren esentzia** (3); **gauza baten esentzia** (3); **gauza horren esentzia** (3); **gauzaren esentzia** (5); **gauzen esentzia** (5); **gauzen esentziaren** (3); **giza izpituaren esentzia** (6); **gizakiaren esentzia** (17); **gizakiaren esentzia bera** (8); **gizakiaren esentziari** (3); **gorputzaren esentzia** (9); **gorputzaren esentzia halako** (3); **gure esentzia** (3); **gure esentziaren** (3); **gure izpituaren esentzia** (3); **haien esentzia** (4); **haien esentziak** (3); **haien esentziari** (3); **haren esentzia** (28); **haren esentzia bera** (5); **haren esentziak** (9); **haren esentziaren** (7); **haren esentziari** (11); **haren esentziari erantsiriko** (3); **haren esentziatik** (7); **haren esentziatik kanpoko** (3); **honen esentzia** (6); **horren esentzia** (6); **izpiritu horren esentzia** (3); **izpituaren esentzia** (19); **izpituaren esentzia osatzen** (5); **izpituaren esentziak** (4); **izpituaren esentziari** (5); **jainkoaren esentzia** (27); **jainkoaren esentzia adierazten** (3); **jainkoaren esentzia mugagabe** (7); **jainkoaren esentzian** (4); **jainkoaren esentziaren** (5); **jainkoaren esentziari** (4); **maitasunaren esentzia** (4); **substantziaren esentzia** (4)

---

esentzial 1 *izond* esentziari dagokiona; funtsezkoa, oinarrizkoa.

Horkheimer-ek ez du antropologia ukatzen; bakarrik, ez du metafisika berri bat bihurtuta ikusi nahi (gizaki-A estudiatzen, gizaki **esentziala**). Joxe Azurmendi

ETAk askatasunaren "printzipio **esentzialak"** deskribatzen dizkigu bere Liburu Zurian. Joseba Zulaika

Ongiaren eta gaizkiaren esentziak bilatzen dira, eta erremedio **esentzialak**. Joxe Azurmendi

Platonek balioen hierarkia **esentzialetik** logikaren eta metafisikaren garrantzia ondorioztatu duen bezala. Joxe Azurmendi

Artearen izaera **esentzialari** buruzko gogoeta teorikoa. teoriak ez dio deus haren izateaz, zer-izanaz edo izaera **esentzialaz**: ez dago horrelakorik. Askoren artean

Zeure bizia iraganean irudikatzea, zure ondoeza edo sufrimendu **esentziala** gauza gertatua balitz bezala hartzea. Iñaki Segurola

Kanpokotasun horretatik [...] barrukotasun **esentzialerantz** itzultzeko eginbeharrari menderatuko zaio oso-osorik. Xabier Arregi

-Zuk Hitz Sakratuan, Hitz **Esentzialean**, sinesten duzu. Iñaki Iñurrieta

Xehetasun guztiak ezabatu nahi izan ditut Madama Butterfly honetan, ezabatu alferrikako apaindurak, eta poetika **esentziala** bilatu. Berria - Kultura

Gauza akzidentalak gauza **esentzialekin** nahasteak pentsalarien izpituetan sorrarazten duen okerbidea. Xabier Kintana

2 (izan aditzarekin)

Kanten arrazoimenarentzat **esentzialak** dira mugak eta esparruak. Askoren artean

Predikatua izan daiteke berezitasunen bati loturikoa, funtsezkoa edo **esentziala** izan gabe, akzidente bati dagokiona. Askoren artean

Denbora nire lanetan **esentziala** da gai bezala eta baita erretorikaren erabilpenari dagokionean ere. Ana Urkiza

Alta Vatikanoko II-ko testu batean errepikatua da zelibatuaren legearen erlatibotasuna: Zelibatua ez da apezgorako **esentziala** (Presbyterium Ordines 16). Piarres Aintziart

Bereizkuntza honek Espainiako historian **esentziala** eta akzidentala banatzea ahalbidetzen dio; eta positiboa eta negatiboa. Joxe Azurmendi

· Arrazaren kontzeptuak **esentziala** dirudi historian. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esentziala da (3); **eta esentzial** (3)

---

esentzialismo *iz* esentzia gauza guztien gainetik lehenesten duen dotrina.

Unamuno etorkizunetik ere iraganera konbertitu da, historia progresista eta aitzinaketariaren apar eta zirimoletatik intrahistoria isilgeldira, utopia historiko guztietatik salbaziozko **esentzialismo** katoliko eta espainolera. Joxe Azurmendi

---

esentzialista *izond* esentzian oinarritzen dena.

Jorge Oteiza, nazionalismo **esentzialistaren** eragile Unibertsaltasuna ez zen, hortaz, modu **esentzialista** batean ulertu behar. Berria - Harian

Ordenaren kontzeptu **esentzialista** edo naturalista (metafisiko) batez bakarrik seguru samar sentitzen diren espirituren batzuentzat. Joxe Azurmendi

Planteamendu **esentzialista** ez da demokratikoa, Atxagak dioenez, «mundu honetan ez dagoen leku utopiko batean» kokatzen duelako bere zilegitasuna. Berria - Harian

Nafarroako nortasuna elkargune gisa ulertzen dute, «ikuspegi **esentzialista** eta uniformatzaileetatik urrun». Berria - Harian

«Gaur egun ere, Txillardegik ikusmolde **esentzialista**, zurruna, orokorra kritikatzen du», Beltzaren ustez. Berria - Kultura

Menéndez Pelayotar edo krausista lehenbizi, 98tarra gero, laster faxista, demokrata konstituzionalista hurrengo, herri espainolaren arima salbatzeko bokaziokoa beti, eta beti "esentzien" begirale, **esentzialista** bezala besteak madarikatuz. Joxe Azurmendi

Esan gabe doa [...] bi planteamenduok **esentzialistak** direla. Bernardo Atxaga

Ikuspegi kultural erabat **esentzialista**, erabat erromantikoa» zen Oteizarena. Berria - Harian

---

esentzializatu *izond* esentzial bihurtua.

Euskal Herri malenkoniatu eta **esentzializatu** baten edukiak ez dira falta: pertsonalismoa, igualitarismoa, demokrazia popularra, emakumearen papera ordena tradizionalean, eta abar. Joseba Zulaika

---

esentzialki *adlag* modu esentzialean.

Mundua, nahimen esentzial gisa, **esentzialki** mina eta sufrimendua da. Askoren artean

Hura bere buruaren jabetasunera heltzearena (**esentzialki** prozesuan gauzatzen baita arrazoimena) -kultura, zientzia, filosofiaren bidez-. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta esentzialki (4)

---

esentzialtasun *iz* esentziala denaren nolakotasuna.

Bai aitak bai ugazalabak forma horretan ikusten baitute betirako adierazirik beren **esentzialtasuna**, batentzat zigor eta bestearentzat mendekua dena. Josu Zabaleta

Hiri handiek baizik ez diezazkiokete aurkez espiritualtasun fenomenologikoari kointzidentzia denborazko eta ezprobabilisten **esentzialtasunak**. Xabier Olarra

Haren iritzian, "zentrikotasunaren" artea da espresionismoa (inpresionismoaren "azentrikotasunari" kontrajarririk), **esentzialtasunaren**, simetriaren, estatikotasunaren artea. Josu Zabaleta

---

esentziatu, esentzia(tu), esentziatzen du *ad* esentzia bihurtu.

Ganivet-i onartu behar zaio, herri gogoaren bere kontzeptua osoki historiari atxikitzen diola berriro: izpiritu espainola influentzia ezberdinek historian zehar taxutu dutena da, ez arraza edo naturaren batek betiko **esentziatua**. Joxe Azurmendi

---

esentziazale *izond/iz* esentzien zalea dena.

Esentziazaleen zigor, iritsi ziren Jon eta Aitor Sarasua, Aristorena, Arantzazu Loidi. Andoni Egaña

---

eserarazi, eserararaz, eserarazten *(orobat **eseriarazi** g.er.)* du *ad* esertzera behartu.

Garailea neurekin **eserarazi**ko dut neure tronuan, neu ere garaile izan eta neure Aitarekin beronen tronuan eseri naizen bezala. Elizen arteko biblia

Halako batean, Thatcher aulkitik altxatu eta neskatoari oldartu zitzaion bere belaunetan **eserarazi**z. Lopez de Arana

Danik altxatu, Llumi besotik heldu eta bere ondoan **eserarazten** du berriro. Antton Olano

Arropak aldaturik, mahaian **eserarazi**ko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Elizen arteko biblia

Eserarazi Tabrizeko alfonbra baten gainean, zapatak kendu eta oinak igurzten zizkion. Felipe Juaristi

Goian, eskailera maila batean **eserarazi** zuen. Karlos Zabala

Bi esku indartsuk bere lekuan **eserarazi** zuten berriro. Josu Zabaleta

Apenas egon zen formalismorik larruz forratutako besaulki banatan **eserarazi** zituenean. Joxemari Urteaga

Nire logelara eraman nuen, eta hantxe **eserarazi** nuelarik, esan ere egin nion, "Ea, Curtis", zera "Konturatu beharko zenuke Amak ia bi dolar ordaindu dituela untxiarengatik; berrehun penny inguru" alegia. Mirentxu Larrañaga

Zilarrezko iltzeak zituen besaulki batean **eserarazi** ninduen, hanka azpian aulki txiki bat jarrita. Juan Kruz Igerabide

Bere zakurra bere ondoan **eserarazten** zuen mahaian, buruz buruko solas luzeak izaten zituen harekin tximinia ondoan. Josu Zabaleta

Igo eta elkarrengandik bereizirik **eserarazi** gintuzten, eta nik inguru guztian nituen milizianoak, eseriak zein zutik Jesusek jendea **eserarazteko** agindu zien ikasleei. Juan Garzia

Sorbaldak estutu nizkion, **eserarazteko**. Juan Kruz Igerabide

Jesusek esan zien ikasleei: - **Eserarazi** berrogeita hamarnaka. Elizen arteko biblia

Bere alboan **eserarazi** eta agindu hau eman zien bere ofizialei: [...]. Elizen arteko biblia

Apalari burua altxarazten dio jakinduriak eta handikien artean **eserarazten**. Elizen arteko biblia

"Emakume agorra etxean **eserarazten** du", hau da, finkatzen eta egonkortzen du. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aulkian eserarazi (7); **aulkian eserarazi eta** (5); **batean eserarazi** (8); **bere ondoan eserarazi** (4); **eserarazi egin** (5); **eserarazi egin ninduen** (4); **eserarazi eta** (15); **eserarazi ninduen** (7); **eserarazi nuen** (5); **eserarazi zuen** (16); **eserarazi zuten** (7); **eta eserarazi** (5); **eta eserarazi egin** (3); **gainean eserarazi** (4); **hantxe eserarazi** (3); **ondoan eserarazi** (6); **ondoan eserarazi zuen** (3)

---

eseri, eser, esertzen da *ad* **1** ipurtaldean eta eskuarki orobat bizkarrean bermaturik jarri edo ipini. ik**jesarri; jarri 13**.

Haurrek zein adinekin hasi beharko luketen **esertzen**, zutitzen eta bakarrik ibiltzen. Berria - Gaiak

Osaba Kamilek aulki batean **esertzeko** usadioa zuen, bere denda-zuloaren atarian. Patxi Zubizarreta

Aulki gurpildunean berriz **esertzen** zen bitartean, don Ottaviok kontatu zion guztian pentsatu zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Normandiarra besaulki batean **eseri** zen, negar zotinka. Karlos Zabala

Iganderoko zinezaleak ez baitziren sekula beheko 21garren ilarako butaketan **esertzen**. Joseba Sarrionandia

189 nazionalitatetako ikasleak **esertzen** dira Italiako ikasgeletako bankuetan. Anjel Lertxundi

Motoan **esertzerakoan** hotzikara sentitu dut; gauaren abisua. Pako Aristi

Orduan, jendeari lurrean **esertzeko** agindu zion.

Leku berean **esertzen** dira beti, modu berean eusten diote denek buruari. Jose Morales

Eta zera gertatzen zait, ez dakidala nola jokatu dei hori iristen ez denean, axolagabe jokatu nahi izaten dudan arren, irudi ilun bat **esertzen** baita nire alboan. Lander Garro

Zure seme Salomon izango da nire hurrengo erregea, eta bera **eseriko** da nire errege-aulkian. Jose Antonio Mujika

Ez dira epaimahaian **esertzen**, ez baitituzte ulertzen legearen xedapenak. Elizen arteko biblia

Ez litzatekeela **eseriko** mahai berean pertsona azal-ilun batekin, milioi bat dolarren truke ere. Mirentxu Larrañaga

Esertzeko esan zion, Goio zutik baitzegoen oraindik. Joseba Sarrionandia

Bere aspaldiko laguna **eseri** zenean -berrogeita bat urte lehenago **eseri** zen besaulki berean, leku haren erakarpen indarrari nahi gabe obeditu balio bezala-, besteak begiak kliskatu zituen asebeterik. Xabier Olarra

Zuhaitz zahar baten motzondoan **eseri** naiz hurrengo. Mirentxu Larrañaga

- **Eseriko** gara, petrilean edo? -galdetu dit. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurrean **eseri** naiz, bizkarra hormaren kontra eta belaunak bildurik. Anjel Lertxundi

Etzaulki banatan **eseri** ziren, guri kasurik egin gabe. Fernando Rey

Lihozko ohe-arropa luzeari gorantz egin eta belaun parean egokiturik, ohe-ertzean **eseri** zitzaion Elizabeth. Anjel Lertxundi

Osaba bere aulki berezian **eseri** zen, Susie, zurrun, ohe gainean **eseri** zen. Koro Navarro

Eseri ziren mahaian **eseriko** dira bi erregeak; baina asmo txarrez beterik egongo direnez, gezurra besterik ez diote elkarri esango. Elizen arteko biblia

Mahaiaren mutur batean **esertzen** zen bere botila xanpainarekin. Jose Morales

Sukaldea jaso eta ontziak garbiturik, ama telebistaren aurrean **esertzen** zen, kamamila bat hartuz. Juan Kruz Igerabide

Lurrean sutondoan **eseri** zen apalki, mahaian eserita zeuden anaien aurrez aurre. Askoren artean

Denok suaren inguruan **eseri** gintuan isil-isilik. Xabier Olarra

Sukalde epelean **eseri** ziren familiarekin. Agustin Otsoa

Komunean **eseri** eta bere onera etortzen saiatzen da. Oskar Arana

V. sendagileak eskuineko partidu bati ematen zion botoa eta igandeetako mezan lehenbiziko ilaran **esertzen** zen. Joseba Urteaga

Haren ondoan **esertzen** da, masaila ukitzen dio eskuarekin. Oskar Arana

Ondoan **eseri** zait baimenik eskatu gabe; kortesiaren arrastorik ez. Anjel Lertxundi

Lortu zuen azkenean sagua beraren esanera etzatea, zutitzea eta atzeko hanken gainean **esertzea**, eta oso garesti saldu zuen orduan. Jose Morales

Mandataria aldamenean **eseri** zitzaion. Koro Navarro

-Ez iezadazu hitz egin une batez -esan zion Ronek, Harry ondoan **eseri** zitzaionean-. Iñaki Mendiguren

Ongi ikusia da senarra batzarrean, herriko arduradunen artean **esertzen** denean. Elizen arteko biblia

Teresa bakarrik etorri zen, poliki paseatuz, eta etxe aurreko petrilean **eseri** zen. Bernardo Atxaga

Hori esanik, sutondoko errautsetan **eseri** zen. Juan Kruz Igerabide

Eseri nire eskuinean.

Israelgo errege-aulkian **eseri** naiz, Jaunak esan bezala. Elizen arteko biblia

Harrizko aulki batean **eseri** ginen. Josu Zabaleta

Biak etortzen ziren nire bankura **esertzera** eta egunkariko berriak komentatzen zituzten. Fernando Rey

Kafetegi barruan **eseri** zen bera. Joxe Austin Arrieta

Nekeak jota, antzokiaren inguruko kafetegi batean **esertzea** erabaki genuen. Ramon Saizarbitoria

Hortxata edo limoia edateko **esertzen** ziren Pradoko saltokiren batean. Josu Zabaleta

Somera kaleko Morga tabernan **eseri** ziren, izkinako mahaian. Unai Iturriaga

Bertaratuak agurtu, eta elkarren alboan **eseri** ziren. Patxi Zubizarreta

Orain karabina apal batean zegoen, goian, muturra okertuta, Dudley gainean **eseri** zelako. Iñaki Mendiguren

Zutik egoteaz nekatua, kezka begitartean, bulegoko mahaira **eseri** zen. Patxi Zubizarreta

Sam bolantean **eseri** zen eta bidea erakutsi nion. Xabier Olarra

Elkarri begira **eseri** ziren, isil-isilik. Lopez de Arana

Congo biratu eta hankak gurutzaturik **eseri** zen, adats kizkur beltzean hazka eginez. Lopez de Arana

Goio sabelaren gainean **eseri** eta ukabilka hasi zitzaidan. Joseba Sarrionandia

Sukaldeko harrian bertan garbitu eskuak eta eskutrapuarekin lehortu zituen, **eseri** aurretik. Joxemari Urteaga

Lurrean **eseri** zen basoguarda, nekatuta. Joxemari Urteaga

Portxean **eseri** orduko antzeman genion, irribarreagatik, aldarte umoretsua zekarrela. Bernardo Atxaga

"Biok irakasleak, biok New Hampshirekoak, baina zu alaia eta bera tristea", esan nion Castroko kafean **eseri** eta Helen bainugelara joan zenean. Bernardo Atxaga

Kafetegietara joan, terrazetan **eseri**, kale-bueltan ibili. Jokin Muñoz

Obispoaren ondoan **eseri** zen bera. Inazio Mujika Iraola

Besterik gabe, **esertzeko** esan zidan, eta bazkaria trebetasun handiz zerbitzatu zuen. Javi Cillero

Bila ibili zen bankuetan, baina inon ez zuen **esertzeko** tokirik aurkitu. Karlos Zabala

"Ez da **esertzeko** ordua", esan zion don Jaimek eztarri marrantaz. Bernardo Atxaga

Zuzendariak, traje berdez jantzita, besoak zabaldu zituen, eta **esertzera** gonbidatu gintuen. Juan Kruz Igerabide

Teink egin nion motots kaxkagorritik **esertzera** behartzeko, baina berak amore eman ez. Joxe Austin Arrieta

Alex **esertzeraino** agondu zen. Fernando Morillo

Teresa **esertzen** hasi zen poliki-poliki, beso bat lurrerantz luzatuz; baina mugimendua burutu baino lehen irristatu eta lurrera joan zen, eta etzanda gelditu. Bernardo Atxaga

Eseri eta hartu tea nirekin. Lopez de Arana

Oso kontu itsusia da, areago erabakiak hartzen dituztenentzat, analistekin **esertzea** eta hauei analisiak nolakoak izan behar duten esatea. Berria - Mundua

Eseri eta magalean jarri du kaxa. Xabier Paya

- **Eseri** gurekin -esan zion-. Koro Navarro

Eseri eta ekin arraunean. Juan Kruz Igerabide

Eseri, highball bat edango dugu. Lopez de Arana

- **Eseri**, kanpotarra, izango da-eta beste lekuren bat niretzat. Juan Kruz Igerabide

Halako zirrara bortitza izan nuen bat-batean, non **eseri** beharra izan bainuen. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta kidekoekin)

Ellen alaiki **eseri** zen taxiaren larruzko jarleku hautsez betearen gainean. Lopez de Arana

Gogaiturik **eseri** naiz ohean. Joseba Sarrionandia

Stanislaus Demba zutik jarri eta astiro **eseri** zen atzera. Anton Garikano

Zorabioa egingo zaik, laster **esertzen** ez bahaiz. Pedro Alberdi

Autoan sartu zen azkar batean eta tente-tente **eseri** zen kuxin gris argien kontra. Mirentxu Larrañaga

Zalantza egin, erabaki ezinik pixka batean zutik egon, eta etsipenez **eseri** zen atzera bankuan. Anton Garikano

Haren emaztea, arropa-zaku bat bailitzan, indarge eta astunki **eseri** zen kulunkaulkian. Lopez de Arana

Biribilean **eseri** ginen lotako dendaren kanpoaldean, automobilez hizketan. Koro Navarro

Borobilean **esertzen** dira milaka maitasun-urteko lurrean eta, denek batera, txirulekin Araraten sumina ospatzen dute. Fernando Rey

Listua musuzapiaz garbitu eta bere besaulkian patxadaz **eseri** zen. Lopez de Arana

Baldin eta patxadaz eta lasai **esertzerik** banu. Mirentxu Larrañaga

Merryk kostata laga zuen ametsen mundua, eta ziplo **eseri** zen, asaldaturik. Agustin Otsoa

Sartzeko baimena eskatu eta uzkur **eseri** zen nire alboko aulkian. Joseba Sarrionandia

Harry saltoan **eseri** zen, bat-batean guztiz esnatuz. Iñaki Mendiguren

Sekula ez zen hain gustura **eseri** mahaira arratsean. Karlos Zabala

Ajerezean lehiatzeko **eseri** dira aurkez aurke. Karlos Linazasoro

Aparte xamar **eseri** ginen, jendearen solasik entzun beharrik ez izateko lain. Joxe Austin Arrieta

3 *(du aditz gisa; ik* **eserarazi***).*

Ez dut uste zaldizkoek une hauetan nitaz arduratu nahi izango dutenik, nahiz eta erregeak itzultzean bere ondoan **eseriko** ninduela esan. Kontuz-kontuz lagundu zioten autoraino, eta aurreko eserlekuan **eseri** zuten. Agustin Otsoa

Gudua hasi aurretik, ehiztari indartsuak, bere anaiari oraturik, haitz baten gainean **eseri** zuen. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

alboan eseri (54); **alboan eseri eta** (7); **alboan eseri zen** (21); **alboan eseri ziren** (6); **alboan eseri zitzaion** (6); **aldamenean eseri** (19); **aldamenean eseri zitzaion** (5); **aldean eseri** (6); **artean eseri** (10); **artean eseri zen** (5); **astunki eseri** (10); **astunki eseri zen** (9); **atarian eseri** (9); **atzealdean eseri** (8); **atzean eseri** (6); **atzera eseri** (10); **aulki batean eseri** (35); **aulkian eseri** (79); **aulkian eseri eta** (17); **aulkian eseri zen** (20); **aulkietako batean eseri** (5); **aulkietan eseri** (9); **aulkietan eseri ziren** (6); **aurre eseri** (18); **aurre eseri ziren** (5); **aurrean eseri** (91); **aurrean eseri da** (6); **aurrean eseri eta** (23); **aurrean eseri nintzen** (6); **aurrean eseri zen** (31); **aurrean eseri ziren** (5); **aurrez aurre eseri** (18); **azpian eseri** (10); **baina eseri** (6); **banatan eseri** (8); **banatan eseri ziren** (6); **banku batean eseri** (17); **bankuan eseri** (10); **bat eseri** (13); **bat eseri zen** (6); **batean eseri** (195); **batean eseri da** (9); **batean eseri eta** (27); **batean eseri ginen** (9); **batean eseri naiz** (7); **batean eseri nintzen** (24); **batean eseri zen** (63); **batean eseri ziren** (19); **baten aurrean eseri** (5); **baten azpian eseri** (5); **baten gainean eseri** (19); **baten inguruan eseri** (11); **baten ondoan eseri** (8); **batera eseri** (15); **batera eseri ziren** (5); **bazterrean eseri** (9); **begira eseri** (6); **bere lekuan eseri** (7); **bere ondoan eseri** (8); **berean eseri** (8); **berean eseri ziren** (5); **berehala eseri** (9); **berriro eseri** (23); **berriro eseri nintzen** (5); **berriro eseri zen** (11); **berriz eseri** (21); **berriz eseri zen** (9); **bertan eseri** (31); **bertan eseri eta** (7); **bertan eseri zen** (7); **besaulki batean eseri** (16); **besaulkian eseri** (22); **besaulkian eseri zen** (12); **bezala eseri** (9); **egongelako sofan eseri** (7); **elkarrekin eseri** (11); **elkarren ondoan eseri** (7); **ere eseri** (14); **ere eseri zen** (6); **errege aulkian eseri** (7); **ertzean eseri** (40); **ertzean eseri eta** (6); **ertzean eseri nintzen** (5); **ertzean eseri zen** (18)

eseri ahal (12); **eseri ahal izateko** (6); **eseri aurretik** (14); **eseri baino** (7); **eseri baino lehen** (6); **eseri baitzen** (7); **eseri behar** (25); **eseri behar izan** (8); **eseri beharko** (10); **eseri beharra** (5); **eseri bezain** (12); **eseri bezain laster** (7); **eseri da** (82); **eseri denean** (5); **eseri dira** (20); **eseri egin** (172); **eseri egin behar** (5); **eseri egin da** (10); **eseri egin ginen** (10); **eseri egin nintzen** (17); **eseri egin zen** (97); **eseri egin ziren** (21); **eseri egiten** (23); **eseri egiten da** (17); **eseri eta** (385); **eseri eta begira** (5); **eseri eta bere** (6); **eseri eta berehala** (5); **eseri eta hitz** (8); **eseri gabe** (6); **eseri gara** (21); **eseri ginen** (83); **eseri ginenean** (8); **eseri hemen** (15); **eseri hor** (6); **eseri nahi** (39); **eseri naiz** (39); **eseri nintzen** (146); **eseri nintzen eta** (10); **eseri nintzenean** (12); **eseri nire** (5); **eseri ohi** (22); **eseri ohi zen** (13); **eseri ondoren** (5); **eseri orduko** (12); **eseri zait** (5); **eseri zara** (8); **eseri zela** (6); **eseri zelarik** (5); **eseri zen** (685); **eseri zen atzera** (5); **eseri zen bere** (13); **eseri zen berriro** (10); **eseri zen eta** (31); **eseri zen gero** (5); **eseri zenean** (28); **eseri ziren** (190); **eseri ziren biak** (8); **eseri zirenean** (18); **eseri zitzaidan** (15); **eseri zitzaion** (25); **eseri zuen** (7)

eserlekuan eseri (7); **eta aulkian eseri** (5); **eta berriro eseri** (6); **eta bertan eseri** (10); **eta eseri** (92); **eta eseri egin** (47); **eta eseri egiten** (5); **eta eseri hemen** (5); **eta han eseri** (9); **eta hantxe eseri** (6); **eta lurrean eseri** (5); **eta mahaian eseri** (6); **eta ohean eseri** (5); **gainean eseri** (93); **gainean eseri eta** (13); **gainean eseri nintzen** (7); **gainean eseri zen** (41); **gero eseri** (5); **han eseri** (17); **han eseri zen** (5); **hantxe eseri** (18); **hantxe eseri zen** (7); **haren alboan eseri** (9); **haren ondoan eseri** (14); **harmailetan eseri** (5); **harry eseri** (7); **harry eseri egin** (5); **hemen eseri** (5); **hurbil eseri** (5); **inguruan eseri** (30); **inguruan eseri eta** (9); **inguruan eseri ziren** (7); **jarleku batean eseri** (7); **lasai eseri** (5); **leiho ondoan eseri** (5); **lekuan eseri** (14); **lekuan eseri zen** (10); **lurrean eseri** (33); **lurrean eseri eta** (6); **lurrean eseri zen** (15); **mahai batean eseri** (28); **mahai berean eseri** (6); **mahaian eseri** (84); **mahaian eseri da** (5); **mahaian eseri eta** (19); **mahaian eseri nintzen** (6); **mahaian eseri zen** (11); **mahaian eseri ziren** (5); **mahaiaren aurrean eseri** (8); **mahaira eseri** (31); **mahaira eseri zen** (8); **muturrean eseri** (5); **nire alboan eseri** (5); **nire ondoan eseri** (15); **ohe ertzean eseri** (17); **ohe gainean eseri** (21); **ohean eseri** (29); **ohean eseri eta** (5); **ohean eseri zen** (9); **ondoan eseri** (163); **ondoan eseri da** (12); **ondoan eseri eta** (18); **ondoan eseri nintzen** (14); **ondoan eseri zen** (61); **ondoan eseri ziren** (10); **ondoan eseri zitzaidan** (7); **ondoko aulkian eseri** (6); **ordenagailuaren aurrean eseri** (5); **parean eseri** (6); **patxadan eseri** (6); **petrilean eseri** (9); **petrilean eseri zen** (6); **pianoaren aurrean eseri** (5); **portxean eseri** (6); **sofan eseri** (39); **sofan eseri eta** (8); **sofan eseri zen** (17); **sutondoan eseri** (8); **sutondoan eseri zen** (5); **terrazan eseri** (5); **tokian eseri** (6); **tronuan eseri** (5); **zen eseri** (5)

aulkian eseria (5); **aulkian eseriko** (25); **aulkian eseriko da** (13); **aurrean eseria** (6); **batean eseria** (7); **batean eseriko** (7); **eseria dago** (6); **eseria dagoen** (6); **eseria zegoela** (5); **eseria zegoen** (21); **eseriko da** (42); **eseriko den** (7); **eseriko dira** (10); **eseriko gara** (9); **eseriko naiz** (16); **eseriko zara** (6); **eseriko zen** (7); **eskuinaldean eseria** (5); **gainean eseria** (11); **mahaian eseria** (5); **mahaian eseriko** (7); **ondoan eseriko** (8); **tronuan eseria** (17); **zegoen eseria** (6)

alboan eserita (24); **aldamenean eserita** (10); **aldean eserita** (7); **artean eserita** (19); **atarian eserita** (8); **atzealdean eserita** (6); **atzean eserita** (20); **aulki batean eserita** (38); **aulkian eserita** (62); **aulkietan eserita** (15); **aurre eserita** (9); **aurrean eserita** (85); **aurrean eserita zegoen** (16); **aurrez aurre eserita** (9); **azpian eserita** (5); **bakarrik eserita** (13); **banatan eserita** (10); **banku batean eserita** (14); **bankuan eserita** (8); **barruan eserita** (6); **bat eserita** (10); **batean eserita** (190); **batean eserita eta** (8); **batean eserita ikusi** (5); **batean eserita zegoen** (25); **batean eserita zeuden** (6); **batean zegoen eserita** (6); **batekin eserita** (5); **baten atzean eserita** (5); **baten aurrean eserita** (10); **baten gainean eserita** (23); **batera eserita** (5); **bazter batean eserita** (7); **begira eserita** (5); **bera eserita** (10); **bera eserita zegoen** (5); **bere aulkian eserita** (6); **bere ondoan eserita** (7); **bertan eserita** (17); **besaulki batean eserita** (10); **besaulkian eserita** (22); **bezala eserita** (6); **bulegoan eserita** (5); **dago eserita** (15); **daude eserita** (9); **denak eserita** (6); **egongelan eserita** (6); **egoten zen eserita** (6); **elkarrekin eserita** (7); **elkarren ondoan eserita** (12); **erdi eserita** (5); **erdian eserita** (8); **eroso eserita** (8); **ertzean eserita** (46); **ertzean eserita zegoen** (8)

eserita aurkitu (15); **eserita aurkitu zuten** (5); **eserita baitzegoen** (9); **eserita dago** (43); **eserita dagoen** (19); **eserita daude** (7); **eserita dauden** (6); **eserita edo** (14); **eserita egiten** (6); **eserita egon** (59); **eserita egon eta** (5); **eserita egon ginen** (6); **eserita egon nintzen** (5); **eserita egon zen** (6); **eserita egon ziren** (7); **eserita egondako** (5); **eserita egongo** (11); **eserita egotea** (17); **eserita egoteko** (13); **eserita egoten** (26); **eserita egoten zen** (7); **eserita eman** (9); **eserita ematen** (9); **eserita eta** (70); **eserita gaude** (7); **eserita gelditu** (17); **eserita gelditu nintzen** (8); **eserita gelditu zen** (5); **eserita geratu** (45); **eserita geratu nintzen** (9); **eserita geratu zen** (14); **eserita geratuko** (6); **eserita geratzen** (5); **eserita geundela** (9); **eserita geunden** (18); **eserita ikusi** (22); **eserita ikusi zuen** (7); **eserita itxaron** (5); **eserita jarraitu** (6); **eserita jarraitzen** (13); **eserita jarraitzen zuen** (6); **eserita jarri** (13); **eserita nago** (8); **eserita nengoela** (7); **eserita nengoen** (28); **eserita segitzen** (5); **eserita utzi** (7); **eserita zain** (9); **eserita zegoela** (24); **eserita zegoen** (221); **eserita zegoen eta** (7); **eserita zegoen gizon** (5); **eserita zegoen lekutik** (6); **eserita zegoena** (6); **eserita zegoenean** (5); **eserita zeudela** (6); **eserita zeuden** (74)

eserlekuan eserita (5); **eskaileretan eserita** (6); **eskuinean eserita** (5); **eta eserita** (23); **eta eserita geratu** (5); **etxean eserita** (8); **gainean eserita** (102); **gainean eserita zegoen** (10); **gelan eserita** (7); **geratu zen eserita** (7); **geunden eserita** (8); **han eserita** (25); **hantxe eserita** (20); **hartan eserita** (10); **hemen eserita** (15); **hor eserita** (11); **idazmahaian eserita** (6); **inguruan eserita** (27); **inguruan eserita zeuden** (5); **jarlekuan eserita** (5); **kontra eserita** (6); **lasai eserita** (13); **leihoan eserita** (6); **lekuan eserita** (6); **loratégian eserita** (5); **lurrean eserita** (67); **mahai aurrean eserita** (5); **mahai batean eserita** (15); **mahaian eserita** (48); **mahaian eserita zeuden** (5); **mahaietan eserita** (6); **mahaira eserita** (15); **nengoen eserita** (16); **nintzen eserita** (5); **ohe ertzean eserita** (23); **ohe gainean eserita** (6); **ohean eserita** (28); **ohean eserita zegoen** (6); **ondoan eserita** (99); **ondoan eserita zegoen** (13); **ondoan eserita zeuden** (5); **ondoan eseriz** (6); **petrilean eserita** (10); **sofa batean eserita** (5); **sofan eserita** (24); **suaren aurrean eserita** (5); **sukaldean eserita** (7); **sukaldeko mahaian eserita** (5); **sutondoan eserita** (11); **tente eserita** (5); **terrazan eserita** (8); **tronuan eserita** (6); **txoko batean eserita** (5); **zegoen eserita** (75); **zen eserita** (24); **zeuden eserita** (24); **ziren eserita** (12); **zituen eserita** (5); **zoruan eserita** (5)

alboan esertzen (6); **aulki batean esertzen** (6); **aulkian esertzeko** (9); **aulkian esertzen** (18); **aurrean esertzen** (19); **aurrean esertzen da** (5); **batean esertzea** (7); **batean esertzeko** (18); **batean esertzen** (25); **batean esertzen da** (7); **batean esertzen zen** (5); **batean esertzera** (11); **berean esertzen** (8); **bertan esertzen** (7); **errege aulkian esertzen** (5); **ertzean esertzen** (5); **esertzea eta** (11); **esertzearekin batera** (5); **esertzeko agindu** (11); **esertzeko baimena** (6); **esertzeko ere** (5); **esertzeko esan** (19); **esertzeko eskatu** (14); **esertzeko eta** (8); **esertzeko gonbita** (7); **esertzeko keinua** (9); **esertzeko keinua egin** (7); **esertzeko prest** (6); **esertzen ari** (5); **esertzen da** (53); **esertzen da eta** (6); **esertzen den** (16); **esertzen dena** (5); **esertzen denean** (7); **esertzen dira** (24); **esertzen diren** (7); **esertzen eta** (5); **esertzen ginen** (11); **esertzen naiz** (19); **esertzen nintzen** (19); **esertzen zen** (67); **esertzen zen bitartean** (7); **esertzen zenean** (9); **esertzen ziren** (38); **esertzera gonbidatu** (13); **esertzera gonbidatu zuen** (5); **esertzera joan** (23); **esertzera joan zen** (14); **eta bertan esertzen** (5); **eta esertzeko** (17); **eta esertzeko esan** (5); **eta esertzeko keinua** (6); **eta esertzen** (8); **gainean esertzea** (5); **gainean esertzeko** (7); **gainean esertzen** (9); **hantxe esertzen** (5); **lekuan esertzen** (5); **mahai batean esertzeko** (6); **mahaian esertzea** (8); **mahaian esertzeko** (14); **mahaian esertzen** (8); **mahaira esertzen** (6); **negoziatzera esertzeko** (11); **negoziatzera esertzeko eskatu** (6); **ohean esertzen** (5); **ondoan esertzea** (8); **ondoan esertzeko** (6); **ondoan esertzen** (33); **ondoan esertzen da** (7); **ondoan esertzen zen** (6); **ondoan esertzera** (8); **sofan esertzen** (9); **sofan esertzen da** (6)

---

eserialdi *iz* denbora batez eseririk egotea; eserita egoten den denbora.

Aita kapaz zen zazpi-zortzi mazapan **eserialdi** batean irensteko. Jokin Muñoz

Joycek **eserialdi** batean idatzi zuen lehen kontakizuna, *Ahizpak,* amaren senitarteko apaiz zahar ero bat oinarri harturik. Irene Aldasoro

Modu jarraituan idaztean ere, hasiera berri bat egon daiteke **eserialdi** bakoitzean. Ana Urkiza

Gaueko su ondoko **eserialdiak**. Pablo Sastre

Errepidez egin beharreko zatian, **eserialdia** egin zuten atzo gauean ekologistek. Berria - Gaiak

Hainbat diputatu erreformazale Irango Ganberan **eserialdia** egiten ari dira egunotan, neurriarekin ezadostasuna adierazteko. Berria - Mundua

Abuztuaren 12an **eserialdia** hasi zuten Oukacha kartzelaren atarian, euren seme-alabak berehala askatzeko eskatzeko. Berria - Harian

Ate nagusiaren aurrean egindako **eserialdian**, suhiltzaile janzkera soinean, grebalariek sirena jo zuten maiz eta bengalak piztu zituzten, handik pasatzen zirenen harrigarri. Berria - Ekonomia

Eserialdiarekin hasi dituzte mobilizazioak. Berria - Ekonomia

Horrela eserita, gorputza aurrerantz, mugatuta zeukan metro eskaseko distantziatik foka zezakeen tapiz zatia, aldatu egingo zitzaion azter unea **eserialditik eserialdira**, begiradaren angeluaren arabera. Iñaki Iñurrieta

Ordubeteko **eserialdi** «baketsua» egin zuten, 08: 30ean hasita. Berria - Euskal Herria

Abenida amaigabeetan barrena ibiltzeari ekin diot, lasai, tarteka atseden hartzeko eta jendeari begiratzeko **eserialdi** ederrak egiten nituela. Patxi Zubizarreta

Erroman bizi diren sardiniarrek, aldiz, protesta **eserialdi** baterako deia egin zuten gaurko, Washingtonen politikarekin bat ez datozen hainbat italiarrekin batera. Berria - Mundua

---

eseriarazi ik **eserarazi**.

---

eserleku *(ETCn **11.654** agerraldi)* **1** *iz* esertzeko lekua.

Saloiko erdialdea mahai eta **eserlekuz** betea zegoen, denak ere agertokirantz begira jarrita. Joxemari Iturralde

Bere **eserlekua** aulki lerroaren erdian kokatzen baitzen. Ramuntxo Etxeberri

Gero areto txiki bat, non besaulkiak eta beste **eserlekuak**, zorro zuriz estalirik, lotan baitzeuden inoren arreta bereganatu gabe. Karlos Zabala

Hilerokoa izanik erabiltzen duen etzalekua nahiz **eserlekua** kutsatua gelditzen da. Elizen arteko biblia

100 **eserleku** baino gehiago dituzten hegazkinen merkatuaren %54. Berria - Ekonomia

Eserlekuan jarri zen, luze bezain zabal, gin-tonic hura dastatzen zuen bitartean. Joxemari Iturralde

Dena den, ezer baino lehen... -emakumea deseroso mugitu zen **eserlekuan**- galdera bat egin behar dizut. Alberto Ladron Arana

Orain dela urte batzuk, ordea, gauzak ez ziren horren errazak -andrea are sakonago hondoratu zen **eserlekuan**-. Alberto Ladron Arana

Aurrez aurre jarri ginen, bakoitza bere **eserlekuan**, mahaiaren alde banatan. Joan Mari Irigoien

Akusatuen **eserlekuan** egongo da berriro Emilio Ibarra BBVAko presidente ohia aurki. Berria - Ekonomia

San Frantzisko pasealekuko **eserleku** batean jarri ohi ginen, Ezeiza gozotegiaren parean. Xabier Mendiguren Elizegi

Autobuseko atzeko **eserlekuetan**. Eider Rodriguez

Bezero bat sartzen da taxiko atzealdeko **eserlekura**, halako eta halako lekutara eramateko eskatzen dizu. Oskar Arana

Inor ohartu gabe, atzeko ilarako **eserleku** batean esertzen da. Oskar Arana

Merkantzi igorleen agenteak, larruzko zorroa lepotik zintzilik, dirua noiz jasoko zain zeuden, atzera botatako **eserlekuetan** jarrita, salmenta bulegoen ondo-ondoan. Karlos Zabala

Autoa gelditu eta kopilotoaren **eserlekuan** zeraman aparatu txiki bati heldu zion. Aitor Arana

Gaztea erdi kuzkurtuta zegoen **eserlekuan**. Javi Cillero

Hirurogeita hamar urte inguruko emakumezko bat ikusten zuen **eserlekuan** uzkurtuta, lehen hegaldiaren beldurra ezkutatu ezinik. Imanol Zurutuza

Abel, luze gabe, artega mugitzen hasi da **eserlekuan**. Pello Lizarralde

Eserlekuko larru beltzean zulo ttiki harrigarriro borobil bat agertu zen. Alberto Ladron Arana

Kotxeko **eserlekutik** etxeko ohera. Xabier Mendiguren Elizegi

SDko buruzagia **eserlekutik** jaiki eta eskua luzatu zion Del Valleri: [...]. Alberto Ladron Arana

Nire **eserlekutik** altxa eta pintura alemanari eskainitako saletako batera joan nintzen, Durerok ehun banatan irudikatutako Adan eta Eba ikustera. Bernardo Atxaga

Hori adierazten zuten, behintzat, **eserlekutik eserlekura** gurutzatu zaizkigun begirada gero eta konplizeagoak. Patxi Zubizarreta

Eserlekuaren bizkarrean bermatu nintzen eta arnasaldi luze bat egin nuen. Koro Navarro

Burua **eserlekuaren** bizkarraldean jarri zuen, hasperen eginez. Fernando Morillo

Erabat lur jota, ikaraz, **eserlekuaren** beste puntan hantxe gelditu nintzen kuzkur-kuzkur eginik. Juan Garzia

Eta ez dago mahairik ez **eserlekurik**, dena lurrean eserita edo belaunikatuta egiten da. Ibon Uribarri

Plaza Libre pilotalekua eraiki dute, 794 **eserlekurekin**. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Etxeberritarrenean lanez lepo zebiltzan, herriko bikarioak, elizako aulki zaharrak baztertu eta gero, hirurogei **eserleku** luze egiteko agindu baitzien. Elkarri begiratu zioten eta derrepentean don Evaristo zutitu egin zen bere **eserleku** erraldoitik. Anjel Lertxundi

Denak patxadan eseri ziren larruzko **eserlekuetan**. Jon Muñoz

Idazlari handi beltzarana, zurezko **eserleku** garaian jesarrita, astiro-astiro idazten ari zen, begiak lasai aurpegi hotzez gorrituxean. Karlos Zabala

Lotarako egokitu ginen, zamarra garondoaren azpian, hankak aurreko **eserleku** hutsen gainean luze. Joxe Austin Arrieta

Bikote maiteminduak saihestuz **eserleku** librea topatuko duzue. Joseba Sarrionandia

Metrorako **eserleku** berriak saltzen. Hasier Etxeberria

Larru faltsuzko **eserleku** gorraila. Ramuntxo Etxeberri

Hala bete zituzten hutsik zeuden lekuak; dena den, inor ez zen ausartu **Eserleku** Arriskutsuaren tokia hartzera. Juan Kruz Igerabide

Parkeko **eserleku** hotz hartan. Alberto Ladron Arana

Argiak biziagoak dira, mugikorragoak, eta poste batzuen atzean **eserleku** hanka-luzeak daude. Pako Aristi

Hementxe gelditua da jenderik gehiena gaua pasatzen, **eserleku** herdoilduetan lo, edo bebarru sakonetako noraezean. Pako Aristi

Berriro beste zorabioaldi hotz bat izan zuen ia; **eserleku** konkortsuaren kontra-kontra, begiak itxita geratu zen ateetatik igaro arte. Iñaki Mendiguren

Goizeko ordu hartan, hiribidea hutsik zegoen, burdinazko **eserlekuak** bi espaloietan lerro-lerro. Karlos Zabala

Aurreko **eserlekuetan** SDko bi agente zeuden, Müller bera eta Rudolf izeneko tipo flakosta bat, gidari zebilena. Alberto Ladron Arana

Komuneko **eserlekuan** jarrita zegoen bitartean. Joxemari Iturralde

Taxista eta ni zer gertatzen zen ohartzen hasi baino lehen eserita zegoen atzealdeko **eserleku** librean morroi bat. Joxemari Iturralde

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zerbitzariak pantomimatsu eskuarekin keinu eginda eskainitako **eserleku**-ilara paregabeari uko egin hitzik esan gabe, eta izkina bateko mahaia aukeratu zuen azkenean. Anton Garikano

Han nire **eserleku**-lagunak, hilean behin elkar ikustearen poderioz familia moduko bat osatzera iritsi garenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Pentsatzen jarrita, muttikokeria bat, ausardia merkea iruditzen zait orain **eserleku**-trukaketarena; umekeria, errespetu falta eta irakurleak nahi duen guztia. Xabier Mendiguren Elizegi

Eserleku gisako harri landuak zeuden zut jarrita. Joanes Urkixo

Ba omen dira han hiru edo lau harri handi, **eserleku** moduko bat osatzen dutenak, beren atzealde eta aulkitxoarekin. Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi gizon, zalgurdiko gidari-**eserlekuan** eserita joango zirenak. Felipe Juaristi

Laurak kotxea hartzera atera eta Bautistak bere gidari-**eserlekutik** ikusi zituenean, harridura-imintzio bat egin zuen, ezinbestean egin ere. Koro Navarro

Bidaia luzeetan lau umetik bat arriskuan joan ohi da segurtasun **eserlekuak** gaizki jarrita egoten direlako. Berria - Euskal Herria

Hanka bat bizikleta **eserlekuaren** gainean zuela. Josu Zabaleta

5 (parlamendu, batzar eta kidekoetan)

Erakundeetako **eserlekuen** erdiak emakumeentzako izateko eskatu genuen, baina alderdiek %30 soilik ematea onartu zuten. Berria - Harian

EAJk eta EAk, gehienez, 34 **eserleku** izango dituzte batzarrean. Berria - Ekonomia

Hirugarren **eserlekua** lortzea edo ez 33.000 botoren araberakoa izango dela kalkulatu dute. Berria - Mundua

Alonsok azaldu du Batzar Nagusi berrian dagozkien **eserlekuak** baliatu dituztela «BBK-k gizarte lanari indar handiagoz ekin diezaion». Berria - Ekonomia

Europako Parlamentuan **eserlekua** eskuratu duen ordezkaria ERCko Bernat Joan Mari izanagatik, EAko hautagai Mikel Irujo ere denbora tarte batez Europan egongo dela esan zuen Larreinak. Berria - Euskal Herria

EAJri eskatu dio «hauteskundeen emaitzak errespetatzeko» eta BBK-ko administrazio kontseiluko **eserleku** guztiak ez hartzeko. Berria - Ekonomia

Iragarri bezala, Adegik **eserlekua** hutsik utzi du Metalgintzako bileran. Berria - Ekonomia

Gonbidatuen **eserlekuetan** neke aurpegiak dira nagusi. Berria - Harian

Eutsi egin dio EBk bere **eserleku** kopuruari. Berria - Harian

Aralarrek berari ez dagokion kargu publikorik ez hartzeko konpromiso zehatza berresten du, udalbatzetan bezala legebiltzarretako balizko **eserlekuetan**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alboko eserlekuan (3); **atzeko eserlekuan** (16); **atzeko eserlekuetan** (4); **atzeko eserlekura** (7); **atzeko eserlekutik** (7); **aurreko eserlekuan** (8); **aurreko eserlekuaren** (4); **aurreko eserlekuetan** (7); **baina eserleku** (4); **baino eserleku** (4); **batean eserleku** (3); **baten eserlekua** (3); **bera eserlekuan** (3); **bere eserleku** (5); **bere eserlekua** (11); **bere eserlekuan** (14); **bere eserlekura** (7); **bere eserlekura itzuli** (3); **bere eserlekutik** (10); **beren eserlekuetan** (3); **bi eserleku** (6); **bizikleta baten eserlekua** (3); **bost eserleku** (3); **da eserleku** (3); **eserleku baino** (3); **eserleku bakarreko** (3); **eserleku bat** (34); **eserleku bat galdu** (4); **eserleku bat gutxiago** (3); **eserleku batean** (16); **eserleku baten** (8); **eserleku bati** (3); **eserleku ditu** (4); **eserleku gehiago** (13); **eserleku gehienak** (3); **eserleku guztiak** (4); **eserleku horiek** (4); **eserleku horietatik** (3); **eserleku izango** (6); **eserleku izango lituzke** (3); **eserleku kopuru** (3); **eserleku lortu** (4); **eserleku lortuko** (4); **eserleku lortuko lituzke** (3); **eserleku luze** (3); **eserleku pare** (3); **eserlekua eskaini** (3); **eserlekua eta** (5); **eserlekua galdu** (3); **eserlekua hartu** (5); **eserlekua kutsatua** (3); **eserlekua kutsatua gelditzen** (3); **eserlekua lortu** (6); **eserlekua utziko** (3); **eserlekuak beren** (3); **eserlekuak bete** (3); **eserlekuak eta** (3); **eserlekuak hartu** (6); **eserlekuan atzera** (3); **eserlekuan egokitu** (4); **eserlekuan eseri** (7); **eserlekuan eseri zen** (3); **eserlekuan eserita** (5); **eserlekuan jarri** (7); **eserlekuan jarri zen** (3); **eserlekuan jarrita** (4); **eserlekuan utzi** (6); **eserlekuan uzkurtua** (4); **eserlekuan uzkurtuta** (9); **eserlekuaren azpian** (5); **eserlekuaren bizkarraldean** (3); **eserlekuaren gainean** (8); **eserlekuen arteko** (3); **eserlekuetatik altxatu** (3); **eserlekuetatik altxatu eta** (3); **eserlekura itzuli** (5); **eserlekura itzuli zen** (4); **eserlekurik gabe** (5); **eserlekurik lortu** (3); **eserlekutik altxatu** (9); **eserlekutik altxatu zen** (3); **eserlekutik eta** (4); **eserlekutik jaiki** (3); **eserlekutik zutitu** (3); **eta eserleku** (8); **eta eserlekua** (3); **eta eserlekuak** (6); **eta eserlekuan** (5); **eta eserlekuaren** (3); **etzalekua nahiz eserlekua** (3); **gidariaren eserlekuan** (3); **hamar eserleku** (4); **hegazkineko eserlekuan** (4); **hegazkineko eserlekuan uzkurtuta** (4); **hiru eserleku** (5); **hirugarren eserlekua** (8); **legebiltzarreko eserlekua** (3); **nahiz eserlekua** (3); **nahiz eserlekua kutsatua** (3); **ondoko eserlekuan** (6); **ordezkoen eserlekuan** (5); **parkeko eserleku** (3); **segurtasun eserlekuak** (3); **utzitako zerrenden eserlekuak** (3); **zazpi eserleku** (4); **zegoen eserleku** (3); **zegoen eserlekuan** (6); **zen eserlekuan** (6); **zerrenden eserlekuak** (3); **zuen eserleku** (3); **zuen eserlekua** (3); **zurezko eserleku** (3)

---

esertoki *(ETCn **50** agerraldi) iz* eserlekua.

Josebak **esertokia** aurkitu bezain laster egunkariari ekin zion berriz. Iñaki Zabaleta

Esertokia libre uztearren. Juan Luis Zabala

Hautsa kendu zion aulki baten **esertokiari**, bertan eseri aurretik. Koro Navarro

Frantsesa eta ingelesa atzeko **esertokia** izatetik aurreko jarlekua izatera pasatutako horretatik altxatu, telegatik jaitsi, eta Mikel Strogoffi jarraitu zioten. Karlos Zabala

Neguan, inolako berokuntzarik ez; **esertoki** itxurazkorik ez, baizik eta burdinazko aulki txatxar deseroso eta kirrinkatsuak. Juan Garzia

Kantxako **esertokiak** 50 euro balioko ditu, iragan asteko final-laurdenekoak baino hamar euro gehiago. Berria - Kirola

Komun-**esertokian** eseririk, sabelekoa hustu zuen aparteko tarratetan. Josetxo Azkona

---

eserzizio *iz* ariketa.

Hain hertsiki lotzen nintzen, bertzalde, **eserzizio** haiei, non segur bainago ezen orduko lanaren fruitu direla liburuan barrena skribatu dizkizudan hainbat eta hainbat gauza. Joan Mari Irigoien

Zaldi gaineko **eserzizio** haietarik batean, ipintzen zioten lurrean Mattini oilo bat. Joan Mari Irigoien

Baina Mattinekin nituen harremanetan, ni nintzen beti galtzeko, zeren, oratoria **eserzizio** haietan ere, oro har, hura baino trebeagoa nintzen arren, iduriz bainintzen trebeago. Joan Mari Irigoien

---

esesketa *iz* esestea.

Ortega-ren interpretazioaren aurka, Giménez Caballero-rentzat Espainia inoiz ez da izan arrazista, eta judu eta moriskoen **esesketak** erlijiosoak izan ziren, ez arrazialak. Joxe Azurmendi

---

esesle *iz* esesten duen pertsona.

Esesleek kotxeari tiratu zioten, eta balek kotxea zeharkatu zuten. Koro Navarro

Gaua beltz zegoen, eta ez Martinek ez **esesleek** ezin zuten tiroa zuzendu. Koro Navarro

-Sartu al da hemen gizonen bat? -galdetu zuen **esesleetako** batek. Koro Navarro

---

esetsaldi *iz* esesten den aldia.

Egunsentian eten zen **esetsaldia**. Koro Navarro

Errabinoak bazekien Errusiako **esetsaldien** berri. Koro Navarro

Isileko polizien **esetsalditik** atseden hartzeko abagunea.1956ko abuztuaren 27tik aurrera, hilketa hari eta hiltzailearen **esetsaldiari** buruzko berriak egunero-egunero argitaratu ziren berripaperetan. Jose Morales

Bazterraldi latz eta eternal batek begiratuko duela nire alaba zure **esetsalditik**. Jon Muñoz

Nazio honen agintariek, intelektualek eta komunikabideek dena ahaztu zuten: indiarren genozidioa, judu eta musulmanen jazarpena, ijitoen **esetsaldia**, inkisizioa, eta horrela diktadura nazionalkatolikotik demokrazia posmoderno eta transabangoardistaraino doan urratsa eman zuen. Berria - Kultura

Juduek pairatu dituzten **esetsaldiak** aspaldikoak dira, betidanikoak esan daiteke. Koro Navarro

Ama sobera krudel baten kausaz bi presuna jasaten ari diren **esetsaldia** ematzera. Jon Muñoz

Gogora ekarri zituen bere errebolber maitea poltsikoan, bi eguneko **esetsaldia**, eskutokirik gabeko atea, eta nola txirrinaren bila aritu zen. Jose Morales

Partitu behar nukeen menturaz, eta behartuko nauzu partitze bortxazko eta haatik premiazko horretara, baldin **esetsaldi** laidogarriok behingoz uzten ez badituzu. Jon Muñoz

---

esetsi, esets, esesten **1** dio/du *ad* eraso; jazarri.

Bisir, kalifa eta sultanek sekta horretako kideei **esesten** zieten, beren sinesteengatik. Jon Muñoz

Bitartean, frantses jendarme batzuek Katxori **esetsi** zioten, eta gelditzen ez zela ikusirik, hainbat aldiz tiro egin zioten zaurituta erori zen arte. Koro Navarro

Etorri ziren normandiarrak, eta arpilatu eta zakuratu, batez ere apaiz eta monakoei **esetsi** zieten, abadiak bilatu zituzten, leku erlijiosoren bat non aurkituk. Iñaki Iñurrieta

Erregeren sekretua arrotzei jakinarazi zienaren aurka; enperadorearen mandataria armaz **esetsi** zuenaren aurka. Iñaki Iñurrieta

Gelditasunera eta isiltasunera behartuagatik zuk ni, ez zara hala ere niri **esestera** gutxiago emana. Jon Muñoz

Elkarri **esetsiz** baldar ari ziren artean. Xabier Olarra

Nola **esetsi** didaten, nola eraso didaten, zein estualdi latzak igaro ditudan! Jose Morales

Zergatik **esesten** didazu? Jon Muñoz

-Garai batean -nik **esetsi** -, lagun handiak ginen. Joxe Austin Arrieta

Herrietako biztanleek ihes egiten dute, asaldaturik, beren lurrak bertan behera utzirik, esanez ezin ikusizko izaki batzuek **esesten** dituztela. Josu Zabaleta

Ilunpeen bihotzean ehiztari, harrapakinaren usnan, hautatu, bereizi, **esetsi** ..., senak agindutako estrategia antzina-antzinakoa jartzen zen martxan. Iñaki Iñurrieta

Auzilari batek **esetsia** izateko plazer hutsagatik ihes egiten ikasi zuenean. Iñaki Iñurrieta

Aristoteleszale porrokatua baitzen, gorroto zituen integristak, eta gogotik **esetsi** zien beren erresuma osoan zehar. Jon Muñoz

Aiher biziz **esetsi** nion; Komrover juduak, zokoan bere ohean eserita, ez zidan ja ezer ardura. Matías Múgica

· Garai hartan ez zegoen, gero gure artean bezala, delituak **esesteaz** arduratzen zen alderdi publikorik. Iñaki Iñurrieta

2 (era burutua izenondo gisa)

Ez zuen ordu arte izan ohi zuen abere **esetsiaren** sentipen hura. Plaza horretan bertan, Konstituzioaren plazan hain xuxen, bere azken ehun metroak arkupeetan lasterka egiten dituen gaztea, ez al da minotauro **esetsi** bat? Josu Zabaleta

Kale kantoiko etxe baten atarian zegoen atso bat korrika sartu zen etxe barrura, oilo **esetsi** bat bailitzan. Koro Navarro

---

esetsika *adlg* esesten.

Baina ideia horiek guztiak, erdi argiak, erdi lausoak, **esetsika** ari bazitzaizkidan ere, indar egin nion neure buruari sinistarazteko Luteziak zuela errua nik ezin banuen nire nortasun faltsua utzi. Matías Múgica

---

esfera **1** *iz* zirkunferentzia batek biratzean eratzen duen gainaldea; gainalde horrek mugatzen duen gorputz geometrikoa.

Espazioko izaki matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, prisma, konoa, zilindroa, eta **esfera**, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. Jon Muñoz

Zirkuluen eta **esferen** arabera mugitu behar zuten gauza guztiek, hala agintzen baitzuen harmoniak. Jon Muñoz

Ez diezu agirika egin behar zazpi zeru besterik kontatzen dutelako, gehiago diren arren, batzuetan globo bakartzat kontatzen baita barruan **esfera** batzuk dauzkana. Xabier Kintana

Eskumuturreko erlojuaren **esferari** begiratu zion astiro. Mirentxu Larrañaga

Zerumugan erdi murgildurik zegoen eguzkiaren **esfera**. Xabier Olarra

Jakin nahi al zenuke zertzuk diren zeruko **esferak**, zenbat eta nolakoak diren eta zer daukaten? Xabier Kintana

Haien gogoeta gorenak ez zuen zeruko **esfera** gainditzen. Xabier Kintana

Bidea urraturik utzi dio amodio kristauari, non Jainkoak eta bere sorkariek, amodio "goitarretan" enpo eginak, elkar bilatzen eta gogoratzen baitute zeruko **esferatan** galdurik. Patziku Perurena

Hain dago erregina estu loturik ene bizi eta arimari, ezen, izarrak beren **esferan** baino mugitzen ez diren legez, ezin baitut haren ondoan baino. Juan Garzia

Horma-erloju bat, **esferan** pintaturik loreak zeuzkana. Jose Morales

Esferaren bolumena zilindroarenaren bi heren dela frogatu baitzuen Arkimedesek. Jon Muñoz

Esferan inskriba daitezkeen bost poliedro erregularrak. Jon Muñoz

Esferen harmonia numeroen harmonia da, funtsean, eta munduaren dantza numeroen dantza. Joan Mari Irigoien

Esferen musika! Jon Muñoz

NASAko ikertzaileen arabera, **esfera** horiek harri porotsuetan sartutako sedimentuek sortuak dira eta harkaitz mota horiek uretan egon ohi dira. Berria - Gaiak

Ez dirudi **esfera** baten azaleran bizi garenik, baina hala bizi gara, Lurra esferikoa baita. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Era berean, Jainkoa (gorets bedi Haren izena!) **esfera** gorenaren mugiarazlea da, eta Beraren eraginez mugitzen da hartan den guztia. Xabier Kintana

Lur globoa **esfera** birakari bihur litekeela. Xabier Kintana

Urre koloreko **esfera** mugikor batzuk ageri zituen beheko partean, eta, elkar joaz, metal hots oso fin bat utzi zuten airean. Ramon Saizarbitoria

Mailaren behereneko partean, eskuin aldera, dirdir-isla zuen **esfera** koxkor bat ikusi nuen, nekez jasan zitekeen distira zeriona. Juan Garzia

Garbi dago, beraz, beti **esfera** bakarra aipatzen dela, unibertsoa inguratzen duena. Xabier Kintana

Arrazoitzeko ahalmenari dagokionez, gorputzetan aurkitzen diren **esfera** banatuen adimenekin konpara daiteke. Xabier Kintana

Esfera erdiaren formako sakonune bat. Irene Aldasoro

Suzko **esfera** erdialdera mugi litekeela, eta lur globoa zirkunferentziarantz. Xabier Kintana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Agian, Arkimedesen liburuak irakurri dituenak esango du urarekin ezin dela benetako nibelaziorik egin, hark uste duelako ura ez dagoela nibelatuta, baizik eta **esfera**-forma duela eta lurrak zentroa duen leku berean duela hark ere bere zentroa. Santiago Iruretagoiena

Platonek ere Timeo-n unibertsoa banako baten antzera aurkezten du, osotasun animatu eta organiko gisa, **esfera** itxurakoa. Xabier Kintana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi zirkulu, hiru zirkulu, argi **esfera** bat. Fernando Rey

Hortaz, Lurraren esferikotasuna eta zeru-**esferaren** mugimendu zirkularra eta era honetako gauzak eztabaidatzen dituzten jendeak aurkituko dituzu. Xabier Kintana

Eguzki **esferaren** azken puntua sartzearekin batera, atmosfera garbi-garbi badago, inolako kalima edo gandurik gabe, azken argi izpiaren errefrakzioa gertatzen da, ostadarrean bezala. Iñaki Iñurrieta

Ikusi nuen Alkmaar-eko salatxo batean lurbira-**esfera** bat, hura azkenik gabe biderkatzen duten bi ispiluren artean. Juan Garzia

5 irud/hed

Judizio disjuntibo orotan **esfera** (bere menpean barnebildua dagoen guztiaren kopurua) zatietan (menpeko adigaietan) banatutako osoki gisa errepresentatzen dela ohartu behar da. Ibon Uribarri

Botere politiko eta ekonomikoaren **esferek** indartu egin dute giza beharrak mugagabeak direlako eta horiek asetzearren natura erabil daitekeelako ideia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez du ezagutzaren beste objekturen bat bere baitan barnebiltzen eta erakusten oinarri-esakune horien **esferatik** at. Ibon Uribarri

Erabat gure ezagutzaren **esferatik** at geratzen den kontua. Ibon Uribarri

Zure semeak dena eduki behar zuen, lurreko hondasun eta erraztasun guztiak, zure bizi-mailara igo behar zuen, zure **esferara**. Eduardo Matauko

Edozein enpresa, pribatua edo publikoa izanik ere, **esfera** publikoaren partaide da, helburu eta ondorio publikoak baititu. Iñaki Heras

Intimitatearen **esfera** ukiezina. Joxe Azurmendi

Merkatu **esferak** irentsi egin du **esfera** politikoa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ezagutza-**esfera** hauetako batetik kentzeak bestean ezartzea esan nahi du. Ibon Uribarri

Sailkaketa ahalgarriari dagokionez **esfera** logikoaren indeterminatutasuna soilik baieztatzen duen printzipio logikoak ez du horretarako aukerarik ematen. Ibon Uribarri

6 erlojuaren edo kideko gailu baten orratzak mugitzen diren zirkulua.

Erloju baten **esfera** argiztatuan hamarrak hamar gutxi zirela ikusi nuen. Irene Aldasoro

Esfera lausotuaren azpiko bi orratz geldituek zortziak eta hamar seinalatzen dituzte. Pello Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esfera bat (12); **esfera batean** (4); **esfera baten** (7); **esfera eta** (5); **esferak eta** (3); **eta esfera** (10); **eta esferaren** (5); **zeruko esfera** (4); **zeruko esferak** (3); **zeruko esferaren** (8); **zeruko esferen** (3)

---

esferatxo *iz* esfera txikia.

Unibertsoa eraiki zuen lehenik, eta haren bazter batean **esferatxo** bat ipini, planeta bat, halako moldez antolatua, non posible izango baitzen fenomeno guztiz bitxi eta jostagarri bat agertzea: bizitza. Juan Garzia

Atzealdean estutua burua, **esferatxo** baten gisara. Jon Muñoz

---

esferiko **1** *izond* esferaren forma duena.

Irudi lauen eta **esferikoen** ezagutzaren liburua. Jon Muñoz

Haren gainean, ganga **esferiko** argitu bat buru zuela, espiral baten tankerako frisoa, hainbat itzuli egiten zituena. Jon Muñoz

Begia globo bat da, ia **esferikoa**, bi zentimetro eta erdi inguruko diametroa duena. Josu Zabaleta

Bere anaia, eskopeta hartu eta egongela erdiko mundu mapa **esferikora** apuntatzen ari zen. Harkaitz Cano

Neurri bereko bi masaren artean, **esferikoa** izanik bata, eta bestea beste edozein formatakoa, esfera jaisten zen beti lasterrena. Koro Navarro

Burbuila bat formatzen zen, aski ederra begira eta ia perfektuki **esferikoa**. Juan Garzia

Mezuak baina positiboa izan behar du, dagoeneko hasi garelako pankrean barreiaturik dauden zelula **esferiko** multzoetako bakoitza transplantatzen. Berria - Gaiak

2 esferari dagokiona.

Irudiaren erdigunea zehazki fokaturik badago, irudiaren ertzak lausoturik agertzen dira; aberrazio **esferikoa** esaten zaio teknikoki akats horri. Irene Aldasoro

Ekuazioen teoria, aldaketen kalkulua, trigonometria **esferikoa**, probabilitateen kalkulua. Jon Muñoz

Triangelu **esferiko** baten angeluen batura 180 gradu baino handiagoa da. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aberrazio esferikoa (4); **esferikoa dela** (3)

---

esferikotasun *iz* esferikoa denaren nolakotasuna.

Lurraren **esferikotasuna** eta zeru-esferaren mugimendu zirkularra eta era honetako gauzak eztabaidatzen dituzten jendeak aurkituko dituzu. Xabier Kintana

Eguzkiaren **esferikotasunaren** berri ez dakienaren ezjakintasuna. Xabier Kintana

---

esferoide *iz* gutxi gorabehera esfera forma duen gorputz geometrikoa.

Konoideei eta **esferoideei** buruz. Jon Muñoz

Gure erretinako irudiak **esferoide** baten barruan eratzen direnez, gure aurrean dauden horizontalak geometria esferikoaren arabera behar dira ikusi, eta bihurritu samar agertu behar dute, gure ikusmen-eremuaren ertzetara hurbildu ahala elkartuz doazela. Josu Zabaleta

Gutxik dakite **esferoide** batek duenaren antzeko zapalketak soilik galarazten duela lur irmoaren goraketek edo agian lurrikarek sortutako mendi txikiagoek ere lurraren ardatza jarraituki eta luze gabe nabarmenki higiaraztea. Ibon Uribarri

---

esfinge *(orobat **esfinje** g.er.)* *iz* elezaharreko munstroa, emakume burua eta bularrak, eta lehoi gorputza eta oinak dituena; itxura hieratikoko pertsona.

Esfingearen igarkizuna asmatu uste zuen Edipok: "Zein da ahots bakarreko izakia, lau hankakoa, bikoa eta hirukoa?". Juan Kruz Igerabide

Edipo eta **Esfingea**, lurrontzi puskatu batean ume-marrazkieran pintatuak, Atenea, Erineak edo Eumenideak, edo dena dela derizten zer horiek guztiak, Hannarentzat, egiazko dira, ez alegiazko. Joxe Austin Arrieta

Harritzar handi bat zen, cromlech berri bateko lehen harria, garai modernoetako **esfingea**. Berria - Kultura

Materia, bere pasibotasun burlati horrekin, Osotasuna bezain zahar eta engainutan aberats, **Esfingea** bezalako handios eta sotil. Juan Garzia

Barraren atzealdean geldi, dena kontrolatzen, denaz jabetzen, **esfingea** iduri. Iñaki Iñurrieta

Zer gertatzen da?, galdetu nahi nioke **esfinge** sudurmotzari, horixe litzateke normalena, baina isiltasunari eusten diot, ez naiz horri ezer eskatzen hasiko. Anjel Lertxundi

Emakumea isiltzen dela, begiratu besterik egiten ez diola, urrun, **esfinge** baten moduan. Jon Alonso

Esfinge baten aurpegiera inperterritoa beti-bat mantentzen duen maiordomoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohe izardunei, zisne lepoko aulkiei, **esfinge** itxurako su-burdinei. Koldo Izagirre

Jarrera handikia dute gogoetan, / **esfinje** harroa nola bakardadearen hondoan etzanik, / amaigabeko amets batean lotan iduri. Josu Zabaleta

---

esfingomielina *iz* nerbio sistemako mintzen lipido nagusietako bat.

Bi prebiotiko aztertuko ditugu: **esfingomielina** eta kerzetina. Berria - Gaiak

Esfingomielina, ostera, landareen zelula mintzetan aurkitzen da. Berria - Gaiak

---

esfinje ik **esfinge**.

---

esfinter *iz* anatomian, uretraren eta beste hodi batzuen irekiera ixten duen giharra.

Lerdea omen zerion, ez zen **esfinterrak** gobernatzeko gauza, eta ez omen zuen ezer edo ia ezer esaten. Jon Alonso

---

esfortzu *(ETCn **50** agerraldi; orobat **esfuertzo** g.er.) iz* **1** ahalegina; indarra.

Esfortzurik ez egiteko eskatu zidan berriro. Anjel Lertxundi

Azken **esfortzua** eginda, Peterrek haitzera igo zuen Wendy. Julen Gabiria

Auzi honetan, funtsezkoa baita **esfortzuak** batzea. Berria - Euskal Herria

Ez du kontuan izan orain arte egindako lana eta **esfortzua**. Berria - Euskal Herria

Esfortzua da, txirrindulari asko aldatsaren bukaeran irribarrez doazen irudipena ematen digun neke hori bera. Pako Aristi

Berak, bizirik zegoen senitarteko bakarrak, ez zuen **esfortzurik** aurreztuko gogo hori bete zedin. Bego Montorio

Teknikak, ez dago dudarik, bizimodua hobetzen du, **esfortzuak** eta indarra aurrezten ditu. Bego Montorio

Irribarre egiten saiatu zen, bihotza lehertzeko zorian **esfortzuagatik** eta emozioagatik. Bego Montorio

Jakina da muskuluen **esfortzutik** ateratzen dela mugitzeko behar den energia. Irene Aldasoro

Bizitzan norberaren **esfortzuz** eta inori ezer zor gabe gora egitea. Bego Montorio

Harrituta dirua hain erraz, hain **esfortzu** gutxi eginez irabazteagatik. Joseba Urteaga

Errematekо ilaretan jarrita **esfortzuari** eutsi ezin dion adreilua, paretan jarrita ere ez da izango kargari eusteko behar bezain sendoa. Santiago Iruretagoiena

Failak mugitzen dira **esfortzua** dagoelako. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Normalean bihotzetik eri dauden pertsonek **esfortzu** fisikoa egiteko neke handiak izaten dituzte. Berria - Gaiak

Bai Carlos Araujok bai lekukoek beraiek ere **esfortzu** handia egin behar zuten haren eztarritik ateratzen ziren marmarrak entzuteko. Bego Montorio

Pena dela Donostian horrelako kontzertuak egiteko leku hoberik ez egotea, bera kontzentrazio **esfortzu** handi bat egiteko prest zela baina publikoaren laguntza behar zuela horretan, isiltasuna alegia. Berria - Kultura

Esfortzu handi bat egin aurretik sprint txiki bat egitea onuragarria da. Berria - Gaiak

Deus esan gabe begiratu zidan, harriduraz; begietan nabari zuen **esfortzu** ikaragarria egiten ari zela nondik nora ezagut nezakeen ulertzeko. Ramon Saizarbitoria

Azken erasoa Israelek Egiptori bidalitako mezua da, egiten dituen **esfortzu** politikoak axola ez zaizkiola erakusteko. Berria - Mundua

Bero ikaragarria denean edo **esfortzu** gogor bat egitean, gatza galtzeak arazoak ekar ditzake. Irene Aldasoro

Denbora luzean **esfortzu** jarraituan jarduteko egokituta dauden muskuluak (oxigeno-horni ona behar dutenak). Irene Aldasoro

Azken txanpan Titinek eta Pascualek meritu handiko lau tanto egin zituzten, **esfortzu** ustela izan zen baina. Berria - Kirola

Sukalde bazterretik esku bakar batez aulki bat hartu eta ageriko **esfortzurik** gabe haren gainean zutituz, arasa garai batean arakatu zuen, pipermin idor bat aurkitu arte. Aingeru Epaltza

Sasoi betean ez dagoenez, mutur-muturreko **esfortzuetan** zerbait antzeman lezake, eta, beharbada, beste batzuek baino komeria gehixeago izan lezake onenekin ibiltzeko. Berria - Kirola

3

Ibilbidea oso bestelakoa izan arren, **esfortzu** maila oso da berdina kasu bietan, ia topean, muga anaerobikoaren gainetik ibili behar izaten baita. Berria - Kirola

Muskulu ildaskatuak, berriz, **esfortzu**-eskala askoz zabalagoa du, eta abisatu egiten du gehiago ezin duenean. Irene Aldasoro

Abstrakzio-**esfortzu** zail bat eginez soilik hel nintekeen urte haietara, hiriaren koloreak ezabatuz, hormei beren tonu ilun eta soila emanez, eta oinezkoentzako kaleei beren autoak itzuliz. Joseba Urteaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esfortzu fisikoa (3); **esfortzu handi** (5); **esfortzu handia** (17); **esfortzu handia egin** (12); **esfortzu ikaragarria** (4); **esfortzu maila** (3); **esfortzua egin** (3); **esfortzua eta** (3); **esfortzurik egin gabe** (3); **esfortzurik gabe** (10); **eta esfortzu** (6); **eta esfortzua** (3)

---

esfuertzo ik **esfortzu**.

---

esgrima *(orobat **eskrima**)* **1** *iz* ezpata, sablea eta kidekoak erabiltzeko kirola edo artea.

Esgrima ikasten ari gara, obra batean zein bestean ezpatekin borrokatzen baitira pertsonaia batzuk. Berria - Kultura

Goizero gerritik gora biluztu, bendatu, kareta jantzi eta ordubete ematen zuten **eskriman** Akademiako gimnasioan. Xabier Olarra

Hegazkin batean lehergaiak jarri zituzten eta 73 lagun hil zituzten; horien artean, Kubako **esgrima** taldeko gazte guztiak eta Guyanako eta Ipar Koreako zenbait ikasle. Berria - Mundua

Esgrima eskola utzi eta kazetariekin mintzatu zen atzo goizean Lluis Pasqual Bilboko Arriaga antzokiko zuzendari artistikoa. Berria - Kultura

Euskal Herrian jokatzen den lehen **esgrima** torneoa da. Berria - Kirola

Neska bat **esgrima**-jantzian, bere gorpuzkera negargarri bezain zaharkituaren nabarmengarri. Mirentxu Larrañaga

Noizbait jolastua zen sastakai batez, gizon orok bezala, baina Dahlmann-en **esgrima** jakituria guztia zera zen: kolpeak gorantz jo behar direla, laban ahoa barrurantz. Juan Garzia

Qatarko **Esgrima** Sari Nagusia bigarren urtez antolatu dute eta munduko onenak txalotzeko aukera du edonork, sarrera dohainik izaten delako kirol ikuskizun gehienetan. Berria - Kirola

2 irud/hed

Banekien, ordea, liskarra ez zela mutur-joka bukatuko, bata bestearen aurka hitz egite hura bi diletanteen arteko **esgrima**-saio soila baitzen, gaua bukatzeko bakoitzak begiz jota zeukan neska konkistatzeko burutua. Anjel Lertxundi

Lehengoari ekin nahian aritmetika elektorala lantzeak eta distantzia laburreko **esgriman** aritzeak ezingo die emaitza onik ekarri, ez epe laburrera ez luzera. Berria - Harian

---

esibizionista ik **exhibizionista**.

---

esijente ik **exigente**.

---

esijentzia ik **exigentzia**.

esijitu ik **exigitu**.

esistentzia ik **existentzia**.

esistentzial ik **existentzial**.

esistentzialimo ik **existentzialismo**.

esistitu ik **existitu**.

esistitze ik **existitze**.

eskabadora *iz* indusmakina, hondeamakina.

Goraxeago, **eskabadora** eta garabiek inguraturik, zezen-plaza ageri da, hormak oraindik tente baina barrenak hustua. Jokin Muñoz

eskabadoratzar *iz adkor* indusmakina, hondeamakina.

Eskabadoratzar gurpil fresadoradun horietakoak jo-eta-jo jardun dira urte luzeetan. Pello Zabala

eskabetxe *iz* olio-ozpinekin eginiko saltsa.

Bareak **eskabetxean** jartzen ari naiz. Iñaki Mendiguren

Begi berdeak ditu, apoak **eskabetxean** bezala, / ilea beltza: badirudi arbela. Iñaki Mendiguren

Eskabetxean prestatutako jakiak saltzeko postua ezartzen ari zen. Lopez de Arana

Eskabetxeko sardina latak. Koldo Izagirre

eskabetxetegi *iz* janariak eskabetxean prestatzen diren saltegia.

Burdina-xafla her doilduz eta egur-oholezko hesiz babestutako biltegi, ontziola eta **eskabetxetegiak** zeuden ezker-eskuin. Anjel Lertxundi

Pirata eta sorgina [...] hilerrian aitzina galdu ziren, Euskal Herriraino oinez joan nahi izan balute moduan, zure ama ere aspertua zegoen hutsaren truke lan egiten Barrosotarren **eskabetxetegian**. Koldo Izagirre

eskabide **1** *iz* eskaria, eskuarki zerbait eskatzen den idazkia edo hitzak.

Hauek Galileako Betsaidako Feliperi hurbildu eta **eskabide** hau egin zioten: "Jauna, Jesus ikusi nahi genuke". Elizen arteko biblia

Hanamel, zeure osaba Xalumen semea, etorriko zaizu **eskabide** hau egitera: "Eros iezadazu Anatoten daukadan alorra; zeuri dagokizu horretarako eskubidea, ahaiderik hurbilekoena zaitudanez". Elizen arteko biblia

- **Eskabide** bat egin nahi dut. Jose Morales

Bada **eskabideak** egiteko inprimaki bat *Zein erratz?* liburuaren atzean. Iñaki Mendiguren

300 baino gehiago dira hilketen argiketarako **eskabideak** egin dituzten familiak. Berria - Kultura

Nik hainbat **eskabide** aurkeztu ditut gogorarazteko oinordekorik hurbilena bizirik dagoela oraindik. Jose Morales

Produktua ez zen fabrikazio arruntekoa, kantitate txikitan prestatzen zen eta berariazko eskaeraz soilik; **eskabidea** igorri nuen. Juan Garzia

Ongi iruditu zitzaien **eskabidea** legebiltzarkideei. Elizen arteko biblia

Apaizak berarekin bizitzeko **eskabidea** onartu zion, baina ez zion dirua hartu nahi izan gurasoen beldurrez. Berria - Mundua

Aditzera ematen dizut ez dudala zure **eskabidea** onartzeko arrazoirik ikusten, eta bai arriskuak ugari. Anjel Lertxundi

Aniztasun demokratikoaren **eskabidea** liberalismoaren tradizioak berea duen askatasun eskubidean datza. Joseba Zulaika

Willemen hitzak entzun zituen Velascoren **eskabidea** onetsiz. Anjel Lertxundi

eskabide hauen nonahikotasunak zera planteatzen zuen, ea kornukopiaren emankortasuna uste bezain agortezina ote zen. Iñaki Mendiguren

Pilatok haien **eskabideari** men egitea erabaki zuen. Elizen arteko biblia

Frantziskok ez zien, ez, **eskabideei** uko egin. Askoren artean

Marotok jaramonik ez **eskabideari**, eta ezetz erantzun. Txillardegi

Ama, hitzik gabeko **eskabideari** erantzunez, niri gertatutakoa kontatzen hasi zen. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskal barruti administratibo berezia antolatzea zen haren **eskabide** nagusia, gaur ere lortu gabe jarraitzen duena: euskal departamendua. Koldo Zuazo

Afrikako Batasuneko estatuburu eta gobernuburuak bat etorri dira Gleneagles hirian (Eskozia) gaur hasiko den G8koen bilerakoei **eskabide** bateratuak egiteko. Berria - Harian

Orotariko **eskabideen** bulegoak data ezarri eta niri helaraziko dit. Jose Morales

Ugaritasuna gizadi osoarentzat izateko aukeraren amets berri honek inoiz ez bezalako **eskabide** premiatsu eta larriak sortarazi zituen "gabeziatik askatzeko". Iñaki Mendiguren

Etxegile aberatsen bat eta bere emaztea afaltzera omen zetozen, eta osaba Vernonek **eskabide** handiren bat espero zuen harengandik. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Apirilaren amaieran *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles*ek (CAF) 2.335,7 milioi euroko **eskabide** zerrenda zuen, inoizko handiena. Berria - Ekonomia

2.366 milioi euroko **eskabide** zorroa itxi du, horietariko %32 esportazioak dira. Berria - Ekonomia

Batzuetan, epaileari **eskabide**-orri bat bidali behar, eta ez daukat non idatzi. Jose Morales

Kongresuko beren ordezkariei gutunak bidaltzen zizkietelarik eta ezin konta ahala protesta- eta **eskabide**-agiri sinatzen zituztelarik ere, are orduan ere, gauza bakarrak

kezkatzen ninduen ni: Rory aurkitu eta New Yorkera ekartzeak. Oskar Arana

"Nik, Fulgor Sedanok, 54 urteko gizona, ezkongabea, lanbidez administratzailea, auziak abiarazi eta jarraitzeko gai, ahalez eta neure zuzenbidez, honako **eskabide**-azalpen hauek egiten ditut...". Juan Garzia

Helburua 100.000 sinadura jasotzea da, horien bidez **eskabide** eskubidea baliatu eta Gasteizko eta Iruñeko Legebiltzarretan gunearen beharra nabarmentzeko. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hirirantz zihoan bitartean, egun hartan lortzea espero zuen daratulu-**eskabide** handian bakarrik pentsatu zuen. Iñaki Mendiguren

Eusko Jaurlaritzak joan den irailean jarri zuen auzi-**eskabidea** Estrasburgoko Auzitegian Alderdi Legearen kontra. Caballitoko grebalari gehienek bat egin dute arbitratze **eskaerarekin**. Berria - Euskal Herria

Ikasle hauek elkarren artean maizegi erdaraz dihardute, euskara eskola orduetarako eta hizkuntza **eskabideetarako** bakarrik utzirik. Pello Salaburu

Hiregana, ordea, dohakabe hori, gizon bakar bat ere ez dun etorri ezkontza **eskabidea** egitera. Patxi Zubizarreta

Baina, urteen poderioz, sentimendu hura ahuldu egin zitzaion, halako moldez non baiezkoa erantzungo baitzion ezkontza **eskabide** bati, baldin eta norbait halako asmoekin hurbildu izan balitzaio. Patxi Zubizarreta

Jangaitza da jarrera hori baita gizartearen kultur **eskabideak** zaintzeko ardura duten administrazioarentzat edo kultur mundutik hurbil dauden erakundeentzat ere. Anjel Lertxundi

Hauxe izan zen santuaren asmo bakarra, Elizari babes-**eskabidea** egitean. Askoren artean

Sinesten nuen sinesten nuelakotz, ez galdera bati erantzuna eskainiz, baizik printzipio-**eskabide** baten bidez. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskabide bat (4); **eskabide bat egin** (3); **eskabide hau** (3); **eskabidea egin** (6); **eskabidea egitera** (6); **eskabidea onartu** (7); **eskabidea onartu zion** (3); **eskabideari erantzunez** (3); **eta eskabide** (5); **ezkontza eskabidea** (22); **ezkontza eskabidea egin** (3); **ezkontza eskabidea egitera** (6); **orotariko eskabideen** (4); **zure eskabidea** (3)

---

eskaera *(ETCn **48.389** agerraldi)* *iz* eskatzea, norbaiti beragandik zer nahi dugun jakinaraztea. ik**eskari; eskabide**.

Egina zuen Frantziako nazionalitatea erdiesteko **eskaera**. Fernando Rey

-Epaile jauna, aktan jaso dadila nire **eskaera** hau, alegia, beste kausa bat zabal diezaiotela Agirre'tar Nikola jaunari, Euzko Gudaroste Sekretua sortzeagatik. Koldo Izagirre

Haien **eskaera** iritsi da presidentearen eskuetara. Pako Aristi

Nire harrotasuna apalduko zela fiskalaren **eskaera** sententzia bihurtutakoan. Koldo Izagirre

Biolin bat ekarri zioten, **eskaera** egin eta astebetera. Felipe Juaristi

Santosek edarien **eskaera** orroka egin zion tabernako atean paper batzuei begira zegoen kamareroari. Josu Landa

Realak 2.900 sarreraren **eskaera** jaso du, eta ez da denentzako lekurik izango. Berria - Kirola

Eskaera bat egin nion Ritari: Vladimir izena gordintxoa egiten zitzaidala gu bizi ginen parajerako, eta ardura ez bazion, lagatzeko haurrari Bladi deitzen Vladimirren ordez. Hasier Etxeberria

Bi **eskaera** egin zituzten: presoak etxeratzea eta independentzia. Berria - Harian

Emango al dit berorri **eskaera** bat egiteko eskubidea? Patxi Zubizarreta

Burumakur, **eskaera** bete beharrak etsipen handia emango balio bezala, nire kidea soinuaren bila joan zen. Bernardo Atxaga

Ez zen betetzeko **eskaera** erraza, ibaiaren alde bietan frankotiratzaileak baitzeuden, tiroa botatzeko prest. Berria - Kirola

15 egun naturaleko epea ematen dugu, komunikatu hau irakurtzen den egunaren ondorengotik kontatzen hasita, gure **eskaerak** bete daitezen. Jon Alonso

Beha egon behar duzu zaintzalea deitzen duzunean, bera etorri arte, beha egon behar duzu zure **eskaera** pausatu ondoan erantzuna ukan arte. Filipe Bidart

Federazioak Hong Kong eta Puerto Ricoren ereduak jarri ditu bere **eskaera** oinarritzeko. Berria - Kirola

Googlek **eskaera** onartuko balu emango luke prest dagoela bere bezeroen inguruko informazioa emateko. Berria - Gaiak

1.208 kontsulta eta **eskaera** jaso ditu Interneten bidez, iaz baino %36 gehiago. Berria - Kultura

Akusazio eta **eskaera** horixe bera egin du fiskalak gainerako auzipetu guztientzat ere. Berria - Harian

Eskaera ekainaren 15a aitzin helarazi behar da DDAF Laborantzako zuzendaritzari. Herria

Horixe da neskatoak azkeneko behar duen gauza, egonarririk gabe eta bete ezinezko **eskaerekin** estu hartuko duen emakume burges neurotiko bat. soldatak %4 igotzeko **eskaera** bertan behera utzi dute. Oskar Arana

Berak baietz, pozik hartu zuela **eskaera**. Iban Zaldua

-Ez da **eskaera** ontzat hartzen. Koldo Izagirre

Ikusten dut nire **eskaera** aintzakotzat hartu duzula! txostenak ez die erantzuten **eskaerei**. Pako Aristi

Haren **eskaerari** men eginez, zakurrak biltzen saiatu da. Martin Anso

Euskal Herriko lehen nazio instituzioneak, 125.000 herritarren **eskaerari** erantzunez eta nazioarteko eskubideetan oinarrituz, agiri honen galdegiteko bidea ideki zuen, herritarrei adierazpen honekin bat egiteko aukera eskainiz: [...]. Herria

Txostenak ez die erantzuten **eskaerei**. Berria - Ekonomia

Geroko utzi du, beraz, **eskaera**. Hasier Etxeberria

Nik ezin diot **eskaera** horri uko egin. Patxi Zubizarreta

Baltasar Garzon epaileak, haatik, atzera bota zuen **eskaera**. Berria - Kultura

Eskaera birpasatu dute bien artean. Pello Lizarralde

Asiatik iritsi da, batez ere, **eskaeraren** hazkundea. Berria - Ekonomia

Zure **eskaerari** erantzuteko, o, Sokrates, uste dut ez dela nahikoa bizitza materialaren segurtatzea. Itxaro Borda

Tarteka, baptistak nire **eskaerari** amore eman eta haur-jolas moduko hartara jolasten ginen. Joxe Austin Arrieta

Oso akitua egongo zen Fray Rogeiro, berehala gelditu baitzen lo berriz ere, lehen **eskaerari** eta gero aginduari muzin eginez, baina orain bere loa kezkatua zen, laster eten egingo ziotela berriz igarri bailuen. Jon Alonso

Eta gutun bat ere banerabilen buruan, osaba Juani egin nahi niona, **eskaera** berarekin. Bernardo Atxaga

Eskaeraz eta helegitez setiatu zuen Amiralgoa. Juan Garzia

Eskaera asko ditugu eta batzuetan ezin diegu guztiei erantzun. Berria - Kultura

Herenegun, PSE-EE eta Sozialista Abertzaleak taldek **eskaera** bana aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Elkarteko kideek **eskaera** zehatza egin zieten taldeoi: Europako Parlamentuak Gasteizko sarraskiaren inguruko ikerketa egiteko eskatu diezaiola Espainiako Gobernuari. Berria - Euskal Herria

Larri zeuden nekazariak eta langile-klaseak beren **eskaera** politikoak erreal bilakatzeko eskubiderik zutenetz jakin nahian. Askoren artean

Adierazi zuen PPk ez ziola Balzari **eskaera** ofizialik. Berria - Euskal Herria

Eskaera formalik ez, apenas zeharkako hitzen bat bazkide zenbaiti. Bego Montorio

Eskaera handia dagoelako ikasleen aldetik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez genuela panteoi egoki bat erosteko izapideak burutzeko astirik izan, **eskaera** handia denez, ez baita erraza Polloen panteoi libre eta egokiak aurkitzen. Ramon

Saizarbitoria

Orain, adiskideok, adiskide, eskoladun eta soldadu zareten aldetik, onar iezadazue **eskaera** xume bat. Juan Garzia

Eskaera mutua egin zion. Fernando Morillo

Borreroak **eskaera** harrigarri bat jaso du Ministeriotik: ea kondenatuekin heriotza itzulgarriak lor ditzaken. Karlos Linazasoro

Hain **eskaera** santuak atsegin eman zion Aita santuari. Askoren artean

Gelditzeko **eskaera** irmoak. Hasier Etxeberria

Euskal nortasunaren unibertsaltasuna eta euskal autodeterminazio politikoaren **eskaera** baldintzagabea exijitzea. Joseba Zulaika

Eskaerarik bidezkoenak saihesteko zientzia. Iñaki Iñurrieta

Iruditu zitzaidan zehaztasun hori garrantzitsua zela, ez zezan pentsa **eskaera** konprometigarriak egiteko gai nintzenik. Ramon Saizarbitoria

Grinaren **eskaera** boteretsuei gain harturik, Santuarengana hurbildu zen. Jon Alonso

Euskal nortasunaren unibertsaltasuna eta euskal autodeterminazio politikoaren **eskaera** baldintzagabea exijitzea. Joseba Zulaika

Aneren azabatxeek egin zuten **eskaera**, ortografiazko zeinuz adierazi ezin daitekeen **eskaera** ekidinezina. Unai Iturriaga

PPren testuak bestelako **eskaera** egiten zion Jaurlaritzari: ETAren baldintzarik gabeko «porrotaren» alde lan egiteko. Berria - Euskal Herria

Salatu du «gehiegizko **eskaerak**» egin dituztela sektorekako mahaietan. Berria - Ekonomia

Produktua ez zen fabrikazio arruntekoa, kantitate txikitan prestatzen zen eta berariazko **eskaeraz** soilik; eskabidea igorri nuen. Juan Garzia

Kontua da ekintza hauek guztiek zikindu egiten dutela bidezko **eskaera** demokratikoa dena: autodeterminazioa. Hasier Etxeberria

Adegi: «**Eskaerak** onartezinak dira». Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

MIDAS elkartearen proposamena aintzat hartu du **Eskaera** Batzordeak. Berria - Euskal Herria

Hiru ziren **eskaera** arlo funtsezkoak: 5.000 eta 6.000 pezeta bitarteko soldata igoera (30 eta 36 euro); 40 edo 42 orduko lanaldia, hilabeteko oporraldia, zubiak eta ordu erdi ogitartekoarentzat; eta erretiroa 60 urterekin, soldata osoa istripu edo gaixotasun kasuetan. Hurrengo urteetan programaren **eskaera** kopuruak behera egingo duela uste dute Osakidetzako arduradunek. Berria - Ekonomia

Hatz mamia ttuz busti eta izter gainean bi sortatan dauzkan fakturak eta **eskaera** orriak zenbatu ditu, astiro, zifrei erreparatuz. Pello Lizarralde

Armairu barruan paratuak baitzituen bere sinesmenari jarraikiz halako **eskaera**-papera eta holako Birjinaren irudia. Josetxo Azkona

Bi kutxen artetik maletatxo bat hartu du **eskaera** koadernoak, katalogoak eta bisita txartelak barrenean daudela egiaztatzeko. Pello Lizarralde

Eskaera eta galdera zerrenda paperean idatzita joaten dira bisitetatik. Jokin Urain

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Negu iragan berritik aurrera ez baitzen hainbesterainoko egur-**eskaerarik** izaten. Anjel Lertxundi

LPEEk aurtengo petrolio **eskaeraren** aurreikuspenak gorantz zuzendu zituen atzo. Berria - Ekonomia

Soja **eskaerak** nabarmen egin du gora azken urteotan. Berria - Gaiak

Lanean hasi aurretik ikertzaileek egin behar dituzten baimen **eskaera** ezberdinak ere zehazten dira. Berria - Gaiak

Gero, Iñaki Huarte Mangado eta Julia Sucunza Azparren A mailako funtzionarioendako zigor **eskaera** prestatzen hasi da ordenagailuan. Aingeru Epaltza

Datorren astean beste zazpi epaituk 54, 23, 17 eta 10 urteko kartzela **eskaerei** aurre egin behar dietela ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Gainontzekoen askatsun **eskaerei** ez die erantzun Auzitegi Nazionalak eta horixe da zazpiek preso jarraitzearen arrazoia. Berria - Euskal Herria

Ezkontza-**eskaera** egin nion, maitemindua egon gabe, baita biok berehalaxe konturatu ere hark ez zuela zentzurik. Joxe Austin Arrieta

Ibon Fernandez Iradik auzi **eskaera egin** du, atxiloturik zegoenean jasan zituen tratu txarrak zirela-eta. Berria - Euskal Herria

1998ko azaroan aurkeztu zuen dibortzio-**eskaera**, eta hilabete geroago, dibortzio-ebazpena iritsi baino askoz lehenago, minbizia diagnostikatu zidaten. Oskar Arana

Berria zabaldu zenean, galdaketa-**eskaerak** biderkatu ziren. Pablo Sastre

Telefonoak hainbat aldiz jo zuen, hitzordu-**eskaerak** eta ordutegiari buruzko informazioa. Joseba Urteaga

Aulki **eskaera** itzela iritsi da gaur arratsaldean biltegira. Eider Rodriguez

Lerro hauen bidez jakinarazi nahi dizugu entitate honek ezin duela bere gain hartu, oraingoz eta aurkeztu dituzun baldintzetan, zuk egindako diru-**eskaera**. Arantxa Iturbe

Diru-laguntza **eskaerak**. Berria - Ekonomia

Izar konpainiak aurkeztu egin du Espainiako Lan Ministerioan Sestaoko Naval ontziolan 578 langile plantillaren %49,7 aurrez erretiratzeko erregulazio-espediente **eskaera**. Kernan andreak bazekien Thomas Street-eko beste muturreraino joan eta itzuliko zatekeela salmenta-**eskaera** txiki bat lortzeagatik besterik ez bazen ere. Berria - Ekonomia

Informazio **eskaera**, transmisioa eta elkartrukea. Xabier Arregi

Familiak espetxe zuzendaritzakoei psikologo baten laguntza eskatu bazien ere, hauek uko egin zieten laguntza **eskaera** guztiei. Paddy Rekalde

Erabakiaren arabera, Italiako Gobernuak egindako estradizio **eskaera** onartu beharko luke Frantziak. Berria - Mundua

Nazio Batuen Erakundeak **eskaera** hori babestu zuen, baina Israelek ez du kontuan hartu. Berria - Mundua

Animalien ulua, marrua, nahi duan bezala, etengabe eragiten diegun heriotzaren aurrean gure bihotzak samurtzeko-edo asmatu duten defentsa dela, erruki **eskaera** bat bezalakoa. Pako Aristi

Barrionuevo eta Vera kalean zirela, honentzat eta harentzat indultu **eskaera** zegoela. Hasier Etxeberria

Ezin izan nion postre **eskaera** erabat ulertu, baina bai fruituak aipatu zituela. Ramon Saizarbitoria

5 (ekonomian eta merkataritzan) eskaria. ik **eskaintza 5**.

Enpresa-buruen eta langileen harremanetan gertatzen den **eskaeraren** eta eskaintzaren arteko desoreka bat. Iñaki Heras

Kontua da hasieran **eskaera** handia eta eskaintza txikia dagoela. Berria - Gaiak

Exkax omen dago lana, eta exkax dagoena balio handiko bihurtzen du eskaintza-**eskaeraren** legeak. Joxerra Garzia

Argitaletxeak konfirmatu egin dit *La asesina ilustrada* liburuaren haien edizioaren **eskaerak** nabarmen hazi zirela *París no se acaba nunca*-ren argitarapenaz geroztik. Iban Zaldua

Aulki **eskaera** itzela iritsi da gaur arratsaldean biltegira. Eider Rodriguez

Zutabe batean, esaterako, eskaintzaren eta **eskaeraren** legea Kabala juduaren arabera interpretatzen saiatzen zen; beste batean banku zentralaren interes-tasaren aldaketak ilargiaren faseekin erkatzen zituen. Iban Zaldua

Badu, ordea, ikuspegi honek akats nagusi bat [...]: ekoitzi beharreko ondasun eta zerbitzu osoaren kopurua eta kalitatea finkoak direla pentsatzea; **eskaera** osoa finkoa dela pentsatzea, alegia. Iñaki Heras

Azterketa akats larria da, eta usu egiten dena, beste muturrekoa ere: **eskaera** osoa, ingurugiroak ezarritako mugei jaramonik egin gabe, erabat mugagabea dela uste izatea. Iñaki Heras

Mendebaldeko Alemaniak eta Japoniak barne-**eskaerak** suspertzea onartu zuten. Koro Navarro

Horren ondorioz, konkurrentzia are zorrotzagoa da, murriztu egin baita usadiozko bezeroen (enpresen) kreditu-**eskaera**, hobetu egiten baita enpresen autofinantzaketa. Koro Navarro

6 ***eskaera egin***

Eskaera egin eta hiru astera gutxi gorabehera joango dira etxera ekipoa instalatzera. Berria - Euskal Herria

Biolin bat ekarri zioten, **eskaera egin** eta astebetera, ez bere biolina. Felipe Juaristi

Batez beste, **eskaera egiten** denetik haurra lortu arte bi urte inguru pasatzen dira. Berria - Harian

Eskaera egin dute ekoizleek produkzioa handitu dezaten, eta kontsumitzaileekin elkarrizketa handitu dezaten. Berria - Ekonomia

Eskaera egiteko hiru gauza dira eraman beharrekoak: kolorezko 3 argazki, bizilekuaren froga eta 15 euro (txekez nahiz dirutan). Herria

Gaztigua lehenbizi eta ondoren **eskaera eginda**, lehen kategoriako kamarotean hartu ahal izan zuten tokia, **Eskaera** bat **egingo** dizut: gaur, azken oturuntza izan dezatela ezkongaiek Ulisesen jauregian. Jon Alonso

Eskaera egiteko era eta eskaera bera ez zitzaizkion gustatu Karlosi. Martin Anso

Katedrala ipurdiz gora botatzeko lain leherkariren **eskaera egin** nionean, erotu egin ote nintzen galdegin zidan telefonotik harrituta. Hasier Etxeberria

Estatutuak aldatzeko **eskaera egitea** bide baliagarria izan daitekeela erakutsi dugu, baina bide hori itxita dago dagoeneko futbolean edo saskibaloian. Berria - Kirola

Euskara ez zekienak zer eginik izango ez zuelakoan, jendea oldeka hasi zen seme-alabak ikastolan matrikulatzeko **eskaera egiten**. Joxerra Garzia

Gutunean **eskaera egiten** zion, Larizen estradizioa onartuz gero, inkomunikaziorik aplikatuko ez zaiola bermatzeko.· **Eskaerak egin**, produktuak apaletan jarri, pisatu, kontua, eskerrik asko, atseginez..., harrituta dirua hain erraz, hain esfortzu gutxi eginez irabazteagatik. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aldatzeko eskaera (13); **aldeko eskaera** (6); **antolatzeko eskaera** (6); **asilo eskaera** (16); **asilo eskaera egin** (5); **askatasun eskaera** (14); **askatzeko eskaera** (10); **aske uzteko eskaera** (5); **aspaldiko eskaera** (6); **aurkako estradizio eskaera** (8)

auzi eskaera (7); **azken eskaera** (7); **baimen eskaera** (11); **baina eskaera** (9); **barkamen eskaera** (6); **baten eskaera** (7); **behera uzteko eskaera** (19); **bere eskaera** (16); **beste eskaera** (19); **beste eskaera bat** (15); **bi eskaera** (21); **bi eskaera egin** (5); **bi eskaera zehatz** (5); **biltzeko eskaera** (11); **biltzeko eskaera egin** (6); **bota zuen eskaera** (5); **da eskaera** (18); **da eskaera hori** (5); **debekatzeko eskaera** (6); **die eskaera** (5); **dio eskaera** (8); **dion eskaera** (5); **diote eskaera** (6); **dituzten eskaera** (5); **du eskaera** (34); **du eskaera hori** (6); **duela eskaera** (5); **duen eskaera** (12); **dugu eskaera** (6); **dute eskaera** (18); **edo eskaera** (6); **egin du eskaera** (13); **egin duen eskaera** (8); **egin dute eskaera** (6); **egin zion eskaera** (7); **egin zioten eskaera** (5); **egin zuen eskaera** (24); **egin zuten eskaera** (9); **egindako eskaera** (52); **egindako estradizio eskaera** (9); **eginiko eskaera** (28); **egiteko eskaera** (29); **egiteko eskaera egin** (8); **elkarteak eskaera** (6); **emateko eskaera** (12); **emateko eskaera egin** (5); **eratzeko eskaera** (7); **ere eskaera** (20); **ere eskaera bera** (6); **ere eskaera egin** (6)

eskaera aintzat (38); **eskaera aintzat hartu** (22); **eskaera aintzat hartuz** (5); **eskaera argia** (6); **eskaera argia egin** (6); **eskaera asko** (6); **eskaera atzera** (41); **eskaera atzera bota** (23); **eskaera atzera botatzeko** (9); **eskaera atzo** (5); **eskaera aurkeztu** (20); **eskaera aztertu** (5); **eskaera aztertzen** (5); **eskaera baino** (10); **eskaera bakarra** (7); **eskaera bat** (65); **eskaera bat egin** (28); **eskaera bat ere** (11); **eskaera baten** (9); **eskaera bati** (14); **eskaera bati erantzunez** (7); **eskaera batzuk** (8); **eskaera baztertu** (9); **eskaera bera** (28); **eskaera bera egin** (21); **eskaera bere** (7); **eskaera berretsi** (13); **eskaera berri** (5); **eskaera bertan** (8); **eskaera bertan behera** (7); **eskaera bete** (13); **eskaera betez** (7); **eskaera da** (10); **eskaera egin** (312); **eskaera egin die** (5); **eskaera egin dio** (15); **eskaera egin diote** (9); **eskaera egin du** (30); **eskaera egin dute** (12); **eskaera egin eta** (16); **eskaera egin zien** (10); **eskaera egin zion** (30); **eskaera egin zioten** (9); **eskaera egin zituen** (7); **eskaera egin zituzten** (5); **eskaera egin zizkion** (7); **eskaera egin zuen** (44); **eskaera egin zuten** (23); **eskaera egina** (7); **eskaera eginen** (6); **eskaera eginez** (8); **eskaera egingo** (13); **eskaera egitea** (14); **eskaera egiteko** (27); **eskaera egiten** (42); **eskaera egiten duten** (6); **eskaera ere** (23); **eskaera ere egin** (9); **eskaera erredakzioa** (5); **eskaera errefusatu** (5); **eskaera eskubidea** (11); **eskaera espainiako** (8); **eskaera eta** (40); **eskaera eusko** (6); **eskaera ez** (38); **eskaera ez da** (5); **eskaera ez onartzeko** (6)

eskaera gehiago (11); **eskaera gehien** (5); **eskaera guztiak** (26); **eskaera guztiak atzera** (7); **eskaera guztiei** (11); **eskaera handia** (12); **eskaera handiagoa** (5); **eskaera hau** (8); **eskaera hori** (97); **eskaera hori egin** (6); **eskaera hori egiteko** (6); **eskaera hori ez** (8); **eskaera horiek** (26); **eskaera horrek** (9); **eskaera horrekin** (9); **eskaera horren** (12); **eskaera horri** (27); **eskaera igorri** (6); **eskaera izan** (7); **eskaera jaso** (33); **eskaera jaso ditu** (8); **eskaera jaso dituzte** (5); **eskaera jaso zituen** (5); **eskaera jasotzen** (7); **eskaera nagusi** (10); **eskaera nagusia** (8); **eskaera nagusiak** (6); **eskaera ofiziala** (9); **eskaera onartu** (49); **eskaera onartu zuen** (9); **eskaera onartuko** (5); **eskaera onartuz** (7); **eskaera onartuz gero** (7); **eskaera onartzea** (5); **eskaera onartzen** (8); **eskaera ontzat** (6); **eskaera ugari** (5); **eskaera ukatu** (6); **eskaera zehatz** (10); **eskaera zehatz egin** (7); **eskaera zehatza** (25); **eskaera zehatza egin** (18); **eskaera zehatzak** (13); **eskaera zehatzak egin** (5); **eskaera zuzena** (23); **eskaera zuzena egin** (19); **espainiako gobernuari eskaera** (7); **espetxe zigor eskaera** (8); **estraditatzeko eskaera** (7); **estradizio eskaera** (89); **estradizio eskaera atzera** (5); **estradizio eskaera egin** (10); **estradizio eskaera ez** (6); **estradizio eskaera onartu** (8); **eta eskaera** (69); **eta eskaera hori** (5); **euren eskaera** (9); **ez zuen eskaera** (5); **ez zuten eskaera** (5); **fiskalaren eskaera** (12); **gobernuak eskaera** (6); **gobernuari eskaera** (11); **gobernuari eskaera zuzena** (5); **gure eskaera** (17); **haien eskaera** (5); **hainbat eskaera** (24); **hainbat eskaera egin** (11); **hartzeko eskaera** (16); **hartzeko eskaera egin** (7); **hiru eskaera** (20); **hiru eskaera egin** (8); **honako eskaera** (6); **horrelako eskaera** (5); **indultu eskaera** (6); **informazio eskaera** (6); **irekitzeko eskaera** (5); **izateko eskaera** (18); **izateko eskaera egin** (6); **jartzeko eskaera** (5); **jasotzeko eskaera** (12); **joateko eskaera** (9); **joateko eskaera egin** (5); **jokatzeko eskaera** (5); **kartzela eskaera** (5); **kentzeko eskaera** (8); **laguntza eskaera** (19); **langileen eskaera** (6); **limpiasen eskaera** (5); **luzatzeko eskaera** (6); **manos limpiasen eskaera** (5); **nire eskaera** (12); **parte hartzeko eskaera** (7); **sartzeko eskaera** (18); **sartzeko eskaera egin** (7); **urteko eskaera** (5); **urteko zigor eskaera** (11); **uzteko eskaera** (38); **uzteko eskaera egin** (16); **zen eskaera** (6); **zenbait eskaera** (7); **zigor eskaera** (49); **zigor eskaera egin** (5); **zion eskaera** (12); **zioten eskaera** (6); **zuen eskaera** (50); **zuen eskaera hori** (8); **zuten eskaera** (26)

askatasun eskaerari (6); **bere eskaerak** (6); **beren eskaerak** (10); **diren eskaerak** (7); **dituzte eskaerak** (5); **dituzten eskaerak** (5); **du eskaerak** (6); **egindako eskaerak** (10); **egindako eskaerari** (21); **eginiko eskaerak** (12); **eginiko eskaerari** (11); **eskaerak aintzat** (10); **eskaerak atzera** (7); **eskaerak atzera bota** (5); **eskaerak bete** (10); **eskaerak betetzeko** (5); **eskaerak betetzen** (7); **eskaerak egin** (17); **eskaerak egiteko** (9); **eskaerak egiten** (10); **eskaerak ere** (6); **eskaerak eta** (20); **eskaerak ez** (16); **eskaerak jaso** (7); **eskaerak kontuan** (5); **eskaerak onartu** (9); **eskaerarekin bat** (7); **eskaerarekin bat egin** (7); **eskaeraren alde** (8); **eskaeraren aurka** (8); **eskaeraren berri** (9); **eskaerari aurre** (5); **eskaerari buruzko** (7); **eskaerari erantzun** (17); **eskaerari erantzunez** (25); **eskaerari erantzuteko** (7); **eskaerari ezezkoa** (5); **eskaerari uko** (7); **eskaerari uko egin** (6); **eskaerarik egin** (12); **eskaerarik ez** (17); **estradizio eskaerak** (16); **estradizio eskaeraren** (21); **estradizio eskaerari** (10); **estradizio eskaerarik** (7); **eta eskaerak** (15); **eta eskaeraren** (5); **euren eskaerak** (12); **fiskalaren eskaerari** (6); **gizartearen eskaerari** (7); **gure eskaerak** (19); **herritarren eskaerak** (5); **laguntza eskaerak** (5); **langileen eskaerak** (5); **sindikatuen eskaerak** (5); **z eskaerak** (5); **zigor eskaerak** (21); **zigor eskaerari** (6)

---

eskaeragile *iz* eskaera egiten duen pertsona.

Eskaeragile horren probetxurako eta mesedetarako izango direla pentsatuko du. Santiago Iruretagoiena

---

eskafandra *iz* jantzi hermetikoa, urpean edo espazioan erabiltzen dena.

Eskafandra, zapatoiak eta buruko bola harrigarri hura jantzi zituen eta nasako eskaileretan behera astiro jaitsita itsasoan murgildu zen. Joseba Sarrionandia

Burumakur ibiltzen zinen, astiro, **eskafandra** baten barruan legez. Xabier Montoia

Eskafandraren barruan, leihatilatik, paper bat ikusten zen. Unai Elorriaga

Eskafandra bat jarri nahi zian, Komaroven antz handiagoa izateko, baina ez zioagu utzi. Bernardo Atxaga

Bera begiak zabal zabalik geratu zen, **eskafandra** eranzten zuela, ondo konprenitu gabe bezala. Joseba Sarrionandia

Edonork daki **eskafandrak** direla paper zaharrak ondoen kontserbatzen dituzten enteak. Unai Elorriaga

Holagarrotan, **eskafandraz**, oxigenorik gabe. Koldo Izagirre

Nre **eskafandra** espazialaren barrutik planeta bitxi horretako bizilagunei harrimenez eta errukiz so. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain zuzen ere, liburutegiak egin zituzten arkitekto guztiak **eskafandra**-egile frustratuak ziren. Unai Elorriaga

---

eskafoide *iz* eskumuturreko hezurretako bat, oso hauskorra.

Francisco Mancebo taldekidearen parte-hartzea kolokan dago, **eskafoidea** hautsita duelako. Berria - Kirola

Eskuineko eskuko **eskafoidea** hautsita zuen, eta lasterketa utzi behar zuen. Berria - Kirola

20. kilometroa bete gabe zegoela izan zuen erorikoa, eta Lerinera iristea lortu zuen, hots, 151 kilometro egin zituen **eskafoidea** apurtuta zuela. Berria - Kirola

---

eskai *iz* larru sintetikoa, eskuarki tapizatzeko erabiltzen dena.

Goiko solairuan mahai txikiak eta **eskaizko** jesarlekuak. Sonia Gonzalez

Ezinegonak bultzatu zuen morroia **eskaizko** besaulki zikin batean jesartzera. Josu Landa

Etxerakoan, Seat 850 haren atzeko jarleku **eskaizkoan**, gurasoek plazan erosi dioten liburua zabaldu ume kozkorrak. Iñigo Aranbarri

Eskai zuriz tapizaturiko metalezko aulkiak. Eider Rodriguez

Dyna Panhard batean ibiltzen ginen: zapo mutur-biribil luze bat, hori kanario-kolorea, aulkiak **eskai** zebra imitaziozkoak eta lapiko zaharraren hotsa. Josu Zabaleta

---

eskail[1] *iz ipar* ezpala, printza.

Eguerdi aldera handik ateratzean, egur **eskail** eta ezpaltxoak larruan txertatzen zitzaizkiolako aitzakiaz, dutxatzen zen. Itxaro Borda

---

eskail[2]

1 ***eskail maila*** eskailera maila.

Karrajoan, galtzontzilotan, homo sapiensa baino bi **eskail**-maila beherago dagoen primatea zirudien. Unai Iturriaga

2 ***eskail-buru*** ik **eskailburu**.

---

eskailatu, eskail(du), eskailatzen da/du *ad ipar* ezpaldu.

Egur **eskailatzen** ari zen Beinatengana lehiatu zen, oihuka: [...]. Itxaro Borda

---

eskailburu *(ETCn **215** agerraldi; orobat **eskail-buru** g.er. eta **eskail-buru** g.er.) iz* bi eskailera zatien arteko zati laua; eskailearen burua. ik **eskailera 6**.

Hoteltxoko eskailera igo nuen, **eskailburuan** igeltsero bat ari zen lanean. Fernando Rey

Kontuz **eskail-buruan** aztarnak uztearekin. Harkaitz Cano

Eskailburu berean bizi nintzen, zure atearen aurrez aurre. Eduardo Matauko

Belarria horrela berotzen niola zeharkatu genuen **eskailburua**, haren etxeko ate ondoraino. Aingeru Epaltza

Eskaileretan gora igo zen, astun, bigarren **eskailbururaino**, non ere baitzegoen ate bat letoizko plaka batean *Mr Alleyne* idazkuna zuena. Irene Aldasoro

Oin-puntetan igo zen azken **eskailbururaino**, gero, eskaileretan gora egin zuen tranpol bateraino. Lopez de Arana

Bulegoen aurreko **eskailburuan** motxila bat aurkitu zuten ertzainek. Berria - Euskal Herria

Etxeko atarian lehenbizi eta etxebizitzako **eskailburuan** gero, txirrina zanpaka egin nuen denborak epeldu zizkidan haserrearen su-pindarrak. Aingeru Epaltza

Soziologia fakultateko goiko **eskailburuan** egoten dira, hirugarren pisuan. Gotzon Garate

Goiko solairuko **eskailburuan** ikusi nuen, pijama bat jantzita zeramala. Fernando Rey

Eskailburuan gelditzen ziren lipar batez, argimutila eskuan, solasean, giltza sarrailan sartzen zuten bitartean. Karlos Zabala

Eskailburuko atea zabalik dago. Iñigo Aranbarri

Po kaleko etxebizitzako **eskailburu** goibelera iristen ginenean, aitak txirrina jotzen zuen, eta, amona irekitzera etorririk, belarrira oihukatzen zion: [...]. Juan Garzia

Eskaileretan behera lur joko zuen noski **eskailburuko** zaindariek eutsi ez bazioten behintzat. Koldo Izagirre

Eskailburuko argi mehearen azpian, begiak koadernotik erauzitako orrira behartu nituen. Aingeru Epaltza

Kontuz **eskail-buruan** aztarnak uztearekin. Harkaitz Cano

Ziegako harrizko **eskailburutik**. Fernando Rey

Eskailburuan zain zuen heriotza-zigorra. Martin Anso

---

eskailer ik **eskailera 4**.

---

eskailera *(ETCn **13.483** agerraldi; orobat **eskailer** g.er., **eskilara** g.er. eta **eskillara** g.er.)* **1** *iz pl* igotzeko edo jaisteko erabiltzen diren mailez osaturiko egitura.

Suhiltzaileek **eskailerak** berriki ezarriak zituzten. Lopez de Arana

Eskailerak lasterka igo eta sarrerako atari ilunera iritsi ziren. Iñaki Mendiguren

Eskailerak binaka igo nituen, eta arnasestuka iritsi nintzen maistraren etxebizitzako atera. Juan Kruz Igerabide

Erne eta beharriak tente mugimendua segitzen dut leihatila aldetik lehenik, ibiltokiko hesia zabaltzen, presoa ateratzen, **eskailerak** igaiten. Filipe Bidart

Eskailerak igo eta jaisten, aurpegi anonimoak, berak sekula ezagutuko ez zituenak. Harkaitz Cano

Herri zaharreko portaleko **eskailerak** igotzen dituzte, hiriko bi kale nagusiak korritu, eta erromantikoak iruditzen zaizkien lekuen eta apretagile taldeen argazkiak egiten dituzte, eta haiek burlaizez uzten diete argazkiak ateratzen. Koro Navarro

Arnasa nola hartzen zuen aditu ahal izan zuen Mikelek, **eskailerak** igotzeko ahaleginak areagotuta. Aitor Arana

Eskailerak lasterka igo zituen, balentria gimnastiko honek zenbait minutuz arnasestuka eduki zuen. Jon Alonso

Korrika igotzen zituen **eskailerak** beti binaka, zure gazte-estilo arin berdingabe horretan. Eduardo Matauko

Gero, emeki, **eskailerak** jaitsiko ditu, eta kalera irtengo da. Iban Zaldua

Eskailerak jaitsi nituen, banaka edo binaka, bebarruraino. Karlos Linazasoro

Bere bulegotik ziztuan irten, saltoka **eskailerak** jaitsi eta Maiden Lane-ra atera zen. Lopez de Arana

Hasieran ez zion antzik eman **eskailerak** jauzika jaisten ari zen gazteari. Alberto Ladron Arana

Gure ama poz-pozik zebilen berriz beheko oinean bizitzeagatik, horrela kaletik hurbilago sentitzen zelako eta **eskailerak** gora eta behera ibili gabe sartzen eta atera zitekeelako. Fernando Rey

Hartu zuen kapela buruan eta aitaren ondotik **eskaileretan** behera jaitsi zen, kontu handiz, Peter ondotik zuela. Josu Zabaleta

Ama ere igo zen eta jaikitzeko esan zidan, bestela **eskaileretan** behera botako ninduela. Lopez de Arana

Ganbararako **eskaileratik** gora igo da, nik jarraitu egin diot, eta egurra mozten egon den ordu laurdenean ez dugu hitz bat bera ere esan. Josu Zabaleta

Sethek **eskaileretan** goraino eraman zuen. Anton Garikano

Bost minutu baino lehen itzuli zen, **eskailerak** hanka-puntetan igo eta gure etxean sartu zen. Josu Zabaleta

Gu ere errukitu gaitezke egunaren bukaeran Empire State-eko **eskailerak** garbitu beharko dituenaz. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bat-batean jiratu eta lasterka igo zen **eskailera** lohietan gora. Lopez de Arana

Arretaz, presaka ez baina denborarik galdu gabe, igo ditu **eskailera** argitsuak. Anton Garikano

Arkupeko **eskailerak** astiro igo zituen. Unai Elorriaga

Eztainuzko **eskailera** distiratsu zabaletan gora igotzen ari zen. Lopez de Arana

Eskailera izoztuetan gora egin zuen. Lopez de Arana

Ellen **eskailera** zuri zartatuetan gora zihoan. Lopez de Arana

Eskailera artez bat jaisten da iluntasunerantz. Urtzi Urrutikoetxea

Pilareen ertz finen artean, kolore horiko barra mehe haiek argizko **eskailerak** osatzen zituzten, lehenengo teilatuen lerro iluneraino iristen ziren, goiko teilatuen pilaketaraino igotzen, eta haien zabaleran itzelezko egitura gardenek euskarri hartu eta areto ikaragarriak eratzen zituzten. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta zer daukat zain hamalau **eskailera** mailak jaitsi ondoren? Josu Zabaleta

Antzigarrak **eskailera**-mailetan eta espaloietan dirdaitzen zuen. Lopez de Arana

Jendetza urritu egin zen eta oztoporik gabe igo ahal izan zuten hurrengo **eskailera**-tartea. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Larrialdietarako irteera bat zagok, su-**eskaileratik** kalera ematen duena. Lopez de Arana

Limoi-koloreko goiztiriak kale hutsak blaitu zituen, erlaitzetatik, sute-**eskaileren** eskudeletatik eta zakarrontzien ertzetatik tantak isuriz. Lopez de Arana

5 (singularrean)

Ezkerreko **eskailera**, hirugarren solairua, ama berrien atala. Lopez de Arana

Harryren ohe ondotik igaro eta zurezko **eskailera** estu batean gora joan zen Stan. Iñaki Mendiguren

Ziegetara zihoan harrizko **eskailera** estu batean behera. Iñaki Mendiguren

Galdera horren erantzun gisa, bat-batean ireki zen tranpola, eta zilar-itxurako **eskailera** bat jaitsi zen Harryren oinetaraino. Iñaki Mendiguren

Goiko **eskailera**-mailan, Alice une batez kulunkan geratu zen, noiz hanka batean, noiz bestean. Lopez de Arana

Atzealdean, **eskailera**-furgoia eta suhiltzaileburuaren zaldi azkarrak. Lopez de Arana

Kapela hartu zuen, atetik arineketan irten eta harri zurizko sei **eskailera**-maila jaitsi zituen. Lopez de Arana

Hormaren atzean **eskailera** biribil bat zegoen, pixkanaka gorantz zihoana, **eskailera** mekaniko bat bezala. Iñaki Mendiguren

Bere hankaz eztiki bultza egin zion Crookshanksi **eskailera** kiribilean behera. Iñaki Mendiguren

6 ***eskailera buru*** *(ETCn **13.483** agerraldi; orobat **eskaileraburu** g.er.)* eskailburua.

Goian bada tranpaltxo bat, normalean **eskailera-buru** deituko dioguna. Josu Zabaleta

Atari ojibala erdian, Iturriozko latsaren gainetik eraikitako harrizko mailadi hirukun baten **eskailera-buruan**; eta bi leiho hertsi luzexka goian. Txillardegi

Eraikinean ez zen ezer entzuten, baina **eskailera buruko** argia piztuta zegoen, armairuaren aurrean. Josu Zabaleta

Fred eta George **eskailera-buruko** ilunpean zeuden kuzkurtuta, barrez lehertu beharrean. Iñaki Mendiguren

Eskailera burura ematen zuen ateak sarraila emanda zeukan, eta ate birakaria itxita zegoen. Josu Zabaleta

Gwilymen atearen parean geratu nintzen, **eskailera-buru** haizetsuan. Koro Navarro

Eskailera-buru ilunera iritsi ziren. Iñaki Mendiguren

Azken mailak igo eta **eskailera-buru** txiki batera irten ziren. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eskailera (4); **bat eskailera** (4); **bere eskailera** (3); **beste eskailera** (7); **beste eskailera batzuk** (4); **bi eskailera** (7); **bi eskailera maila** (4); **edo eskailera** (8); **egurrezko eskailera** (6); **eskailera aldera** (3); **eskailera barrenean** (10); **eskailera barrenera** (3); **eskailera bat** (30); **eskailera batean** (5); **eskailera baten** (6); **eskailera batera** (4); **eskailera batetik** (8); **eskailera batzuen** (3); **eskailera batzuetan** (6); **eskailera batzuk** (14); **eskailera batzuk igo** (4); **eskailera biribil** (3); **eskailera buru** (8); **eskailera buruan** (28); **eskailera buruko** (5); **eskailera buruko argia** (3); **eskailera burura** (9); **eskailera burura iritsi** (3); **eskailera burutik** (4); **eskailera eredu** (3); **eskailera estu** (10); **eskailera estu batzuk** (3); **eskailera estuetan** (4); **eskailera eta** (9); **eskailera furgoi** (4); **eskailera furgoi bat** (4); **eskailera garbitzen** (4); **eskailera gehiago** (3); **eskailera haiek** (3); **eskailera hau** (3); **eskailera hauek** (3); **eskailera hertsi** (3); **eskailera hori** (3); **eskailera horiek** (4); **eskailera hura** (3); **eskailera igo** (8); **eskailera igotzen** (6); **eskailera ilun** (4); **eskailera ilunetan** (3); **eskailera jaisten** (3); **eskailera jaitsi** (4); **eskailera kiribil** (11); **eskailera kiribil estu** (3); **eskailera kiribilean** (11); **eskailera kiribilean behera** (9); **eskailera luze** (5); **eskailera luzeak** (3); **eskailera maila** (36); **eskailera maila bat** (3); **eskailera maila batean** (3); **eskailera maila batzuk** (4); **eskailera maila igo** (3); **eskailera maila jaitsi** (3); **eskailera mailak** (25); **eskailera mailak binaka** (3); **eskailera mailan** (7); **eskailera mailatik** (3); **eskailera mailen** (4); **eskailera mailetan** (15); **eskailera mehar** (5); **eskailera mekanikoetan** (6); **eskailera mekanikoetan gora** (3); **eskailera oinean** (3); **eskailera ondoan** (3); **eskailera ondora** (3); **eskailera sistema** (3); **eskailera tarteak** (3); **eskailera zabal** (7); **eskailera zahar** (3); **eskailera zaharren** (3); **eskailera zulotik** (5); **eskailera zuri** (6); **eskailera zurien** (3); **eskailera zurietan** (3); **esku eskailera** (3); **eskuko eskailera** (3); **eta eskailera** (47); **eta eskailera buruan** (3); **eta eskailera mailak** (3); **eta gero eskailera** (5); **etxeko eskailera** (3); **gero eskailera** (6); **gero eskailera kiribilean** (3); **harrizko eskailera** (10); **hiru eskailera** (6); **hoteleko eskailera** (3); **igotzeko eskailera** (4); **jaisteko eskailera** (3); **joateko eskailera** (4); **lau eskailera** (5); **mailako eskailera** (3); **marmolezko eskailera** (3); **nuen eskailera** (4); **podiumeko eskailera** (4); **sartu eta eskailera** (3); **zegoen eskailera** (3); **zen eskailera** (16); **zeraman eskailera** (3); **ziren eskailera** (4); **zituen eskailera** (3); **zuen eskailera** (11); **zurezko eskailera** (11); **zuten eskailera** (7)

atera eta eskailerak (3); **ditu eskailerak** (5); **dituzu eskailerak** (3); **egurrezko eskailerak** (4); **eskailerak binaka** (3); **eskailerak eta** (13); **eskailerak garbitzen** (7); **eskailerak gora** (6); **eskailerak hirunaka** (3); **eskailerak igo** (44); **eskailerak igo eta** (18); **eskailerak igo zituen** (4); **eskailerak igo zituzten** (3); **eskailerak igotzea** (4); **eskailerak igotzean** (3); **eskailerak igotzeko** (5); **eskailerak igotzen** (18); **eskailerak igotzen ari** (4); **eskailerak igotzen eta** (3); **eskailerak jaistean** (3); **eskailerak jaisten** (20); **eskailerak jaisten ari** (5); **eskailerak jaisten hasi** (4); **eskailerak jaitsi** (37); **eskailerak jaitsi bitartean** (3); **eskailerak jaitsi eta** (8); **eskailerak jaitsi zituen** (8); **eskailerak lasterka** (9); **eskailerak lasterka igo** (3); **eskailerako esku** (4); **eskailerako maila** (3); **eskailerako mailetan** (3); **eskaileran behera** (15); **eskaileran behera jaitsi** (3); **eskaileran gora** (30); **eskaileran gora egin** (3); **eskailerapeko armairuan** (3); **eskaileraren azken** (3); **eskaileraren beheko** (8); **eskaileraren beheko mailatik** (3); **eskaileraren ondoan** (5); **eskaileratan gora** (8); **eskaileratik behera** (5); **eskaileratik gora** (4); **eskaileratik gora igo** (3); **eskaileratik jaitsi** (4); **eskailerek eta** (3); **eskaileren azpian** (3); **eskaileren behealdean** (3); **eta eskailerak** (35); **eta eskailerak igo** (5); **eta eskailerak jaisten** (7); **eta eskailerak jaitsi** (5); **eta eskailerako** (3); **eta eskaileran** (7); **eta eskaileran gora** (4); **eta eskailerara** (3); **eta eskaileren** (7); **etxeko eskailerak** (7); **hitz eskailerak** (5); **igo zituen eskailerak** (5); **jaitsi nituen eskailerak** (7); **jaitsi zituen eskailerak** (7); **jaitsi zituzten eskailerak** (3); **marmolezko eskailerak** (4); **marmolezko eskaileran** (3); **nituen eskailerak** (8); **sute eskaileratik** (3); **urteen eskaileran** (4); **zen eskaileran** (5); **zen eskaileran behera** (3); **ziren eskailerak** (3); **zituen eskailerak** (16); **zituzten eskailerak** (3)

agertu zen eskaileretan (4); **andreak eskaileretan** (3); **atariko eskaileretan** (4); **aurreko eskaileretan** (4); **bat eskaileretan** (4); **berriro eskaileretan** (4); **da eskaileretan** (6); **da eskaileretan gora** (3); **du eskaileretan** (3); **egin zuen eskaileretan** (5); **eskaileretako argia** (3); **eskaileretan aurkitu** (3); **eskaileretan barrena** (3); **eskaileretan beheiti** (10); **eskaileretan behera** (235); **eskaileretan behera abiatu** (15); **eskaileretan behera agertu** (3); **eskaileretan behera alde** (3); **eskaileretan behera dator** (3); **eskaileretan behera doa** (3); **eskaileretan behera eraman** (4); **eskaileretan behera erori** (7); **eskaileretan behera eta** (5); **eskaileretan behera jaitsi** (13); **eskaileretan behera jarraitu** (4); **eskaileretan behera joan** (10); **eskaileretan behera lasterka** (6); **eskaileretan behera nindoala** (5); **eskaileretan behera sentitu** (3); **eskaileretan behera zihoala** (5); **eskaileretan behera zihoan** (3); **eskaileretan edo** (3); **eskaileretan ere** (4); **eskaileretan eseri** (4); **eskaileretan eserita** (6); **eskaileretan goiti** (11); **eskaileretan gora** (226); **eskaileretan gora abiatu** (10); **eskaileretan gora egin** (12); **eskaileretan gora eraman** (4); **eskaileretan gora eta** (11); **eskaileretan gora hasi** (3); **eskaileretan gora igo** (15); **eskaileretan gora igotzen** (3); **eskaileretan gora jarraitu** (3); **eskaileretan gora joan** (14); **eskaileretan gora nindoala** (3); **eskaileretan gora zihoan** (3); **eskaileretan zegoen** (5); **eskaileretara joan** (3); **eskaileretatik behera** (12); **eskaileretatik behera jaisten** (5); **eskaileretatik erori** (4); **eskaileretatik erori eta** (3); **eskaileretatik gora** (7); **eskaileretatik igo** (5); **eta eskaileretako** (5); **eta eskaileretan** (86); **eta eskaileretan beheiti** (4); **eta eskaileretan behera** (33); **eta eskaileretan gora** (34); **eta eskaileretara** (4); **eta marmolezko eskaileretan** (4); **etxe aurreko eskaileretan** (3); **etxeko eskaileretan** (7); **geltokiko eskaileretan** (5); **geltokiko eskaileretan gora** (3); **gero eskaileretan** (4); **harrizko eskaileretan** (3); **jendea eskaileretan** (3); **lasterka eskaileretan** (3); **marmolezko eskaileretan** (21); **marmolezko eskaileretan gora** (17); **metalezko eskaileretan** (3); **nintzen eskaileretan** (3); **nituen eskaileretan** (3); **nuen eskaileretan** (3); **orduan eskaileretan** (3); **pausoak eskaileretan** (6); **portxeko eskaileretan** (4); **sartu eta eskaileretan** (3); **udaletxeko eskaileretan** (6); **zen eskaileretan** (19); **zen eskaileretan behera** (9); **zen eskaileretan gora** (5); **zetorren eskaileretan** (4); **zetorren eskaileretan gora** (3); **ziren eskaileretan** (9); **ziren eskaileretan behera** (4); **zuen eskaileretan** (8); **zuen eskaileretan gora** (5); **zuen eta eskaileretan** (3); **zurezko eskaileretan** (3); **zuten eskaileretan** (4)

---

eskaileraburu ik **eskailera 6**.

---

eskaileradun *izlag* eskailera duena.

Baby Suggs ados etorri zen, dirurik gabe geratu zelako triste, baina pozik **eskaileradun** etxe harekin.. nahiz ezin gora igo. Anton Garikano

---

eskaileratxo *iz* eskailera txikia.

Pasilloaren bukaeran erdi gordetako **eskaileratxo** baten aurrean baikeunden. Bernardo Atxaga

Gau batean gurdikada bat ongarri bota zioten apaizetxe aurrean, goizean leiho batetik irten behar izan zuelarik **eskaileratxo** baten laguntzaz. Koldo Biguri

Bi **eskaileratxo** izango dira, bata eskuinean eta bestea ezkerrean, agertokiaren eta aretoaren artean lotura eginez. Josu Zabaleta

Snagak **eskaileratxoa** gorantz sendo kokatu zuen, eta igo egin zen, desagertu arte. Agustin Otsoa

Eskaileratxoa tximiniaraino ekarri, igo gora, eta azkeneko mailan eseri zen Max. Jon Muñoz

Pereissondarren etxe barruan mugimendu arinak, oihartzun gabeko kolpe eta talkak entzuten ziren, zurezko **eskaileratxoetan** norbait gora eta behera ariko balitz bezala. Josu Zabaleta

Ez nituen karrikara ateratzen ikusi zerbitzuko **eskaileratxoan** behera jarraitu ziguten bi pistolariak. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi eskaileratxoetako (3)

---

eskailmaila *(corpusean **eskal-maila** soilik) iz* eskailera maila.

Karrajoan, galtzontzilotan, homo sapiensa baino bi **eskail-maila** beherago dagoen primatea zirudien. Unai Iturriaga

---

eskain ik **eskain**i 5.

---

eskainarazi, eskainaraz(i), eskainarazten du *ad* eskaintzera behartu.

Bada, ez dut deusik ezagutzen erraztasun ergel hori bezain arruntik, batbederari **eskainarazten** baitio bere burua nola eta zergatik jakin gabe, soil-soilik erasotzen zaiolako eta buru egiten ez dakielako. Jon Muñoz

Horretan, heldu ziren Modin hirira Antioko erregearen funtzionarioak; bere erlijioa ukarazi eta idoloei sakrifizioak **eskainarazi** behar zioten jendeari. Elizen arteko biblia

---

eskaingai *iz* eskaini behar den gaia.

Agindu israeldarrei izan daitezela arduratsu dagozkidan **eskaingaiak**, nire ohorez erretzeko opariak, ezarritako egunetan aurkezten; atseginez onartuko ditut. Elizen arteko biblia

---

eskaini, eskain(i), eskaintzen *(orobat **eskeini** g.er.)* **1** du *ad* ondasunez eta kidekoez mintzatuz, norbaiten eskuko jarri, norbaiti aurkeztu har dezan eskatuz.

Zerbitzu publikoa **eskaintzen** duten erakundeek baliabide publikoak eskuratzeko bidea izan beharko lukete. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Free access domeinu bat da, hau da, ordaindu gabe erabil ditzakegu hor **eskaintzen** diren zerbitzu guztiak. Askoren artean

Honek Jaunarentzat **eskaini** zituen, menpean hartutako herri guztiei -edomdarrei, moabdarrei, amondarrei, filistearrei eta amalektarrei- hartutako zilarra eta urrea **eskainiak** zituen bezala. Elizen arteko biblia

Nestorrek ohea **eskaini** zien. Juan Kruz Igerabide

Egistok prestatu zian nire heriotza, nire emazteak lagundurik; etxera gonbidatu, oturuntza **eskaini**, eta zekor bat bezala hil nindian, lagunekin batera. Juan Kruz Igerabide

Prévanek bere palkoa **eskaintzen** dio teatro lan berri bat ikusteko. Jon Muñoz

Debekatuak omen zeuden edariak **eskaintzen** zituzten tabernak, eta baita presazko sexu-beharrak asetzeko beren burua diru truk **eskaintzen** zuten emaztekien etxe goxoak ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Edan -esan nion, ardoa **eskainiz**. Koro Navarro

Han kafe bana **eskaini** ziguten, Pessoaren kontuen gozagarri. Edorta Jimenez

Zezen eta ahari bakoitzeko berrogei kilo irin eta sei litro olio **eskainiko** ditu labore-oparitzat. Elizen arteko biblia

Agureak edaria bukatuta zeukanez, beste botila bat **eskaini** zion. Anjel Lertxundi

Badu behor bat; **eskaini** egiten dit egunpasa joateko Hondarribira eta Errenteriara; zortzi sos, egun batekoa. Koldo Izagirre

Akasgabeko zazpi zezen eta zazpi ahari **eskainiko** dizkio Jaunari erre-oparitzat. Elizen arteko biblia

Aker bat **eskainiko** zaio Jaunari barkamen-oparitzat. Elizen arteko biblia

Deabruei **eskaini** zizkieten sakrifizioak, ezagutzen ez zituzten sasijainkoei. Elizen arteko biblia

Jerusalemera itzuli eta Jaunaren itun-kutxaren aurrera sarturik, erre-opariak eta elkartasun-opariak **eskaini** zituen. Elizen arteko biblia

Zezen eta ahari bakoitzeko berrogei kilo irin eta sei litro olio **eskainiko** ditu labore-oparitzat. Elizen arteko biblia

Espaloian bere albotik pasatzean, argazki bat ateratzeko eskatu zidan makina **eskainiz**. Bernardo Atxaga

Ez zuten egokierarik galtzen israeldarrei kalte egiteko eta jentilei laguntza **eskaintzeko**. Elizen arteko biblia

Jainkoaren Erkidegoa da moralki toleragarri den ekintza-eremu bakarra, eta Civitas Dei horretan kide izatea **eskaintzen** diete giza arimei erlijio nagusiek. Iñaki Mendiguren

Har ezazu zuk ere neure bizitza osoa zure zorionari **eskainiko** diodalako nire zina. Jon Muñoz

Ene aingeru begiralea balitz bezala, bere adostasuna eta bere babesa eta geriza **eskaintzen** zizkidala. Joan Mari Irigoien

Ez zuen ia batere jaten, ez zuen inorekin hitz egiten, ez zion inori irribarre bat **eskaintzen**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ikusiko dugu gizona likore zuri eta likatsua botatzen, eta isurketa horrek eldarnioan murgilduko du, modu horretan bizitzak **eskain** dezakeen plazerik eztiena ezagutzen duelarik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Unibertsitate pribatuek zer ikasketak **eskaintzen** dituzten eta non **eskaintzen** dituzten erabakitzeko, administrazioak izan beharko luke azken hitza. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bihotza urtu egiten zitzaion behartsuen aurrean, eta materialki lagundu ezin zienean, maitasuna **eskaintzen** zien. Askoren artean

Ivan Ogareffen asmoa, beraz, Irkutskera joan eta han gezurrezko izenez duke handiari bere zerbitzuak **eskaintzea** da. Karlos Zabala

Donatien bere faboreak beste emakume batzuei **eskaintzen** hasi zenean, guztiz jeloskortu eta zapuztu zen madame de Montreuil. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Betelen ere bera igo zen aldarera, berak egindako zekor-irudiei opariak **eskaintzera**. Elizen arteko biblia

Errublo erdi gehiago **eskainiko** diat heure intxaur horietako bakoitzarengatik! Jose Morales

-Geometriako teoremarik politena **eskaini** nik hiri, eta hik heure buruaz hitz egiten didak! Jon Muñoz

Zuk zeure ipurdia **eskainiko** didazu xurgatzeko, berak lehen **eskaini** didan aluaren ordez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Israel herria, basamortuan berrogei urtez abererik hil eta oparitzat **eskaini** ote zenidan? Elizen arteko biblia

Hartu eta erre-oparitzat **eskaini** zuen bere semearen ordez. Elizen arteko biblia

Etsaiek alde guztietatik erasotzean, Jaun Ahaltsuari dei egin zion, arkume bat oparitan **eskainiz**. Elizen arteko biblia

Salomonek erre-opariak **eskaintzen** zituen Jaunarentzat, atalondo aurrean eraikia zuen aldarean. Elizen arteko biblia

Jendeak galdegin zuen: -Eta zein ordain-opari **eskaini** behar genioke? Elizen arteko biblia

Intsentsua erre zuten, kriseiluak piztu eta **eskainiriko** ogiak mahaian ezarri. Elizen arteko biblia

Beren laguntza **eskaini** nahi zioten erregeari. Elizen arteko biblia

Jesusek, bere borondatea Aitaren borondatearen baitan jarriz, bere burua opari **eskaini** zuenean. Askoren artean

Neure burua **eskaintzen** dizuet, aholkua, laguntza eta babesa emateko, zeuek nahi duzuen erara. Askoren artean

Zeure edertasuna lohitzen zenuen, edonori zeure burua **eskainiz** eta lizunkerietan etengabe jardunez. Elizen arteko biblia

2 irud/hed

Behako bat **eskaini** nion inguruari. Aingeru Epaltza

Behako gardena **eskaini** diot zuzendari jaunari. Koldo Izagirre

Aurten munduko bigarren gerlaren bukaeraren 60. urtemuga ospatzen delakotz, bi ekitaldi berezi **eskainiak** izanen dira. Herria

Moneoren kuboetan emanaldi ausarta **eskainiko** du Donostiako Talde Barrokoak. Berria - Kultura

2003ko Zinemaldiak atzera begirakoa **eskaini** zion zinemagile horri. Berria - Harian

Senide parrasta bat etorri zen bakartasun handian hil zen gizonari hondar agurraren **eskaintzera**. Itxaro Borda

Sareak **eskaintzen** duen aukera ez dute beste komunikabideek **eskaintzen**. Berria - Gaiak

Itun bat **eskainiko** diat, bada: hire nagusia itzultzen bada, tunika eta soinganekoa emango dizkidak; itzultzen ez bada, esaiek zerbitzariei haitz handi batetik behera bota nazatela, eskaleek gezur gehiago esan ez dezaten. Juan Kruz Igerabide

Horren adibide klasiko bat **eskaintzen** du Boeing eta Airbus enpresen arteko merkataritza-guduan diru-laguntzek izan zuten garrantziak. Koro Navarro

Dutxa hotz bat **eskaini** zion bere gorputz nekatuari. Ramuntxo Etxeberri

Estimua zioten bai ugazabak bai lankideek haren lanari, iaioa baitzen fresagailuarekin, premian zegoen edonori eskua **eskaintzen**, estuasunetan arima erakusten zekiena. Anjel Lertxundi

Oso eskuzabala izan zen eskaleekin eta askatasuna **eskaini** zien atxilotuei. Patxi Zubizarreta

Horra, derrotari **eskaini** nahi zenion monumentua. Ramon Saizarbitoria

Zein programazio mota **eskainiko** duzue? Berria - Mundua

Erromatar bakeak **eskainitako** aukera lehian zeuden zenbait erlijio proletariok hartu zuten. Iñaki Mendiguren

Pintura surrealistari **eskaini** zizkion bere ahalmen guztiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hainbat egunen buruan bisirra Xazamanengana heldu zen, eta honek ongi etorri ezin hobea **eskaini** zion, ezin hobeki hartu zuen anaia zaharraren gonbita. Patxi Zubizarreta

Edertasuna ez da dena bizikidetzan, eta etxeko giroak **eskaintzen** zidan bizi kalitateak izan zuen eraginik, zalantzarik gabe, erabakia hartzeko orduan. Ramon Saizarbitoria

Miradorea eta harana ilun zeuden, eta ez zioten irtenbiderik **eskaini**. Bernardo Atxaga

Bigarren zatia, Aristotelesi **eskaintzen** zaio, eta haren logika, metodo, metafisika, fisika eta etikari buruzko ikuspegi orokorra ematen da. Askoren artean

Eta erregeordeak bertze irri bat **eskaini**, eta erran zioan: [...]. Joan Mari Irigoien

Egunak badoazi izeneko koadernoa neraman La Sallera hasiz geroztik, aitorpen intimoei **eskainia**. Bernardo Atxaga

Esakune honi **arreta** eskaini behar zaio, garrantzi handikoa baita. Ibon Uribarri

Arreta gutxi **eskainiko** diegu zehaztasun horiei. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Matematikariei **eskainitako** uharte geometriko batean jaioa nauk! Jon Muñoz

Praktika ukatzen da, eta, ordez, hitza **eskaintzen**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Garai baten eta bizimodu batzuen margolan itzela **eskaini** zuen Zolak obra erraldoi horretan. Karlos Zabala

Halako bidaiak **eskaintzen** zuen paisaiaz gozatu nahi nuen. Edorta Jimenez

Argitalpen honek grekozko testua **eskaintzen** du. Askoren artean

Era berean, ingelesaren gramatika bat esaldi corpus mugatu batean oinarritzen da (behatutako gertakariak), eta gramatika-erregelak **eskaintzen** ditu (arauak). Itziar Laka

Adibide batzuk ere **eskaintzen** ditu Azurmendik, eta horietako batzuk aipatuko ditugu guk hemen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2. kapituluan, gramatikaltasuna itxuratzeko irizpide orokortzat "esangura semantikoa" erabiltzearen aurkako argudioak **eskaini** ditugu. Itziar Laka

Filosofiaren arloan kokatzen diren kontzeptu gehiago ere **eskaintzen** dizkigu Homerok bete-betean: nahikundea, patua, bizitzari buruzko zentzu agonikoa eta abar. Askoren artean

Kritiasek berak **eskaintzen** dizkigu sorkuntza hark dauzkan ondorio praktikoak: [...]. Askoren artean

Prezio berean berriz ere bueltan eramatea **eskaini** zion taxilariak. Ramon Saizarbitoria

Campusetan, enpresetan nahiz Interneten bidez **eskaintzen** dituztela ikastaroak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Badirudi benetako gauzak esateko, garrantzizko zaizkigun horiei buruz hitz egiteko, tabernak ez duela patxadarik **eskaintzen**; baina hortxe soilik, eta ez beste inon, ausartzen gara horretara. Pako Aristi

Froga gisa **eskaintzen** ditu Eskrituretan adierazitako profeziak konplitu izana. Imanol Unzurrunzaga

3 (adizlagunekin)

Aspalditxotik genuen Arantzazuko frantziskotarrek Euskal Herriari Asisko Frantziskoren (1181/2-1226) idazki eta biografien argitalpen osoa euskaraz **eskaintzeko** asmoa eta gogoa. Askoren artean

Azkenik, hitzez ezin zuenez bihotzez **eskaini** zion bere burua Frantzisko santuari. Askoren artean

Erabat **eskaintzen** dizu bere burua begirune bereziz. Askoren artean

Gainez **eskaintzen** dizugu zordun izan zaitzagun; eta nork du ezer zure ez denik? Imanol Unzurrunzaga

Moisesek aginduaren arabera, egunero **eskaintzen** zituen erre-opariak, bai eta larunbatetan, ilberri-jaietan eta urteko jai nagusietan ere. Elizen arteko biblia

Zazpi jaiegunetan, egunero **eskainiko** dituzue Jaunaren ohorez erretzeko opariak eta hark atseginez onartuko ditu. Elizen arteko biblia

Dena dela, noizbait saldu behar izango banu, zuri doan **eskainiko** nizuke. Patxi Zubizarreta

Herrixka hartako bizilagun pobreek, Jainkoaren ukituz bihotz barnean hunkituta, zeuzkaten gauzak ez ezik, beren buruak ere eskuzabal **eskaini** zizkieten. Askoren artean

Asmo zuzenez **eskaini** dizkizut bat-batean gauza hauek guztiak. Elizen arteko biblia

Gaiztoen sakrifizioak higuingarriak dira, are gehiago asmo txarrez **eskainiak** badira. Elizen arteko biblia

Ardoa, berriz, erregeari dagokion oparotasunez **eskaintzen** zuten. Elizen arteko biblia

Edateko eta jateko ausarki **eskaintzen** zuten besta antolatzaileei ez zien ezetzik helarazten ordea. Itxaro Borda

Bere burua eskaini, eskuzabaltasunez eta ugaritasunez **eskaini** ere, modurik jasoenean, nobleenean. Joan Mari Lekuona

Neure burua oso-osorik **eskaintzen** diot eginbide horri: hemendik aurrera zuri guztiz emana edukiko nauzu. Jon Muñoz

· Martiritzaren sutan bere burua Jaunari opari bizi **eskaintzeko** zuen irrika. Askoren artean

4 (da aditz gisa)

Behin, boluntario **eskaini** zen, santuaren oparitxo pobre bat monasterio hartara eramateko. Askoren artean

5 ***eskain*** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Israel herri, basamortuan berrogei urtez ez zenidan sakrifiziorik, ez **eskain**-oparirik egin. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

bat eskain (10); **eskain dezake** (11); **eskain ditzakeen** (9); **eta eskain** (13); **zer eskain** (11)

agerraldia eskaini (12); **agerraldia eskaini zuen** (7); **ahari bana eskaini** (9); **amari eskaini** (7); **arreta berezia eskaini** (10); **arreta eskaini** (10); **arretarik eskaini** (14); **arte eskaini** (7); **asko eskaini** (16); **atzo eskaini** (9); **aukera eskaini** (73); **aukera eskaini zion** (12); **aulki bat eskaini** (8); **auzapezak eskaini** (7); **babes osoa eskaini** (10); **babesa eskaini** (41); **babesa eskaini zion** (9); **bana eskaini** (19); **bat ere eskaini** (7); **bat eskaini** (412); **bat eskaini behar** (10); **bat eskaini daukute** (9); **bat eskaini dio** (18); **bat eskaini diote** (13); **bat eskaini du** (15); **bat eskaini dute** (11); **bat eskaini eta** (11); **bat eskaini nahi** (33); **bat eskaini nion** (9); **bat eskaini zidan** (42); **bat eskaini zien** (9); **bat eskaini zion** (63); **bat eskaini zioten** (15); **bat eskaini zuen** (13); **bat eskaini zuten** (10); **bati eskaini** (14); **batzu eskaini** (7); **batzuk eskaini** (22); **berak eskaini** (12); **bere burua eskaini** (26); **berezi bat eskaini** (9); **berezia eskaini** (22); **beroa eskaini** (8); **berria eskaini** (8); **berriak eskaini** (11); **bezala eskaini** (7); **burua eskaini** (42); **burua eskaini zuen** (12); **denbora eskaini** (7); **dirua eskaini** (15); **dolar eskaini** (11); **du eskaini** (7); **eder bat eskaini** (15); **ederra eskaini** (25); **egitea eskaini** (8); **egiteko aukera eskaini** (9); **ek eskaini** (11); **elkarrizketa eskaini** (8); **ere eskaini** (72); **ere eskaini zuten** (8); **erre opariak eskaini** (16); **erre oparitzat eskaini** (9)

eskaini ahal (64); **eskaini ahal izan** (10); **eskaini ahal izango** (11); **eskaini ahal izateko** (28); **eskaini behar** (183); **eskaini behar du** (7); **eskaini behar zaie** (8); **eskaini behar zaio** (8); **eskaini behar zuen** (12); **eskaini beharko** (42); **eskaini beharra** (10); **eskaini beharrean** (10); **eskaini beharreko** (18); **eskaini dauku** (7); **eskaini daukute** (27); **eskaini didan** (15); **eskaini didate** (8); **eskaini didaten** (9); **eskaini die** (63); **eskaini diete** (18); **eskaini digu** (23); **eskaini digute** (14); **eskaini diguten** (10); **eskaini dio** (114); **eskaini dion** (24); **eskaini diot** (20); **eskaini diote** (73); **eskaini dioten** (14); **eskaini diozkate** (7); **eskaini dira** (7); **eskaini dit** (38); **eskaini ditu** (66); **eskaini dituen**

(10); **eskaini dituzten** (29); **eskaini dituzten** (9); **eskaini dizkigute** (8); **eskaini dizkio** (18); **eskaini dizkion** (7); **eskaini dizkiote** (12); **eskaini dizu** (8); **eskaini du** (86); **eskaini duen** (27); **eskaini dute** (54); **eskaini duten** (16); **eskaini edo** (7); **eskaini egin** (10); **eskaini ere** (19); **eskaini eta** (87); **eskaini ez** (26); **eskaini gabe** (32); **eskaini genion** (9); **eskaini izan** (33); **eskaini mintzaldia** (11); **eskaini nahi** (183); **eskaini nahi die** (15); **eskaini nahi diegu** (9); **eskaini nahi diogu** (7); **eskaini nahi du** (9); **eskaini nahi izan** (26); **eskaini nahiko** (7); **eskaini nion** (54); **eskaini ohi** (28); **eskaini ohi zituen** (7); **eskaini omen** (7); **eskaini omenaldia** (17); **eskaini ondoan** (10); **eskaini ondoren** (23); **eskaini prentsaurrekoan** (7); **eskaini zaio** (14); **eskaini zidan** (109); **eskaini zidaten** (23); **eskaini zien** (116); **eskaini zien atzo** (7); **eskaini zieten** (24); **eskaini zigun** (59); **eskaini ziguten** (33); **eskaini zintzur** (18); **eskaini zintzur bustitzea** (9); **eskaini ziola** (15); **eskaini zion** (407); **eskaini zion bere** (17); **eskaini zioten** (98); **eskaini zituen** (85); **eskaini zituzten** (38); **eskaini zitzaien** (7); **eskaini zitzaion** (12); **eskaini zizkidan** (11); **eskaini zizkien** (29); **eskaini zizkieten** (19); **eskaini zizkigun** (15); **eskaini zizkion** (87); **eskaini zizkioten** (33); **eskaini zuen** (284); **eskaini zuen atzo** (40); **eskaini zuen bere** (12); **eskaini zuen hitzaldian** (7); **eskaini zuen prentsaurrekoan** (12); **eskaini zuten** (157); **eskaini zuten atzo** (25)

eskua eskaini (21); **eskua eskaini zion** (7); **eta eskaini** (48); **eta eskaini egin** (8); **etena eskaini** (10); **etxeak eskaini** (18); **euro eskaini** (30); **euro eskaini ditu** (14); **gabe eskaini** (9); **gehiago eskaini** (43); **guztiak eskaini** (10); **handia eskaini** (18); **handiagoa eskaini** (11); **handirik eskaini** (8); **hari eskaini** (8); **hau eskaini** (8); **herriak eskaini** (29); **herriak eskaini zintzur** (12); **herriko etxeak eskaini** (14); **herritarrek eskaini** (10); **hitzaldia eskaini** (34); **hitzaldia eskaini zuen** (22); **hobea eskaini** (7); **hori eskaini** (16); **hura eskaini** (10); **igoera eskaini** (14); **jaunari eskaini** (13); **k eskaini** (7); **kantaldia eskaini** (7); **kontratua eskaini** (14); **kontzertua eskaini** (11); **kontzertua eskaini zuen** (7); **laguntza eskaini** (65); **laguntza eskaini zion** (10); **lana eskaini** (12); **lanak eskaini** (7); **lekua eskaini** (7); **milioi dolar eskaini** (9); **milioi euro eskaini** (14); **neure burua eskaini** (7); **omenaldi bat eskaini** (7); **omenaldia eskaini** (11); **ona eskaini** (8); **opari eskaini** (14); **oparia eskaini** (18); **opariak eskaini** (49); **opariak eskaini zizkioten** (10); **oparitzat eskaini** (19); **oso bat eskaini** (8); **osoa eskaini** (30); **parada eskaini** (10); **paregabea eskaini** (8); **prentsaurrekoa eskaini** (51); **prentsaurrekoa eskaini zuen** (25); **prentsaurrekoa eskaini zuten** (26); **sakrifizioak eskaini** (12); **saria eskaini** (10); **sostengua eskaini** (7); **su etena eskaini** (9); **ugari eskaini** (12); **zabala eskaini** (12); **zenari eskaini** (17); **zer eskaini** (20); **zerbait eskaini** (9); **zerbitzua eskaini** (11); **zerbitzuak eskaini** (13); **zigarro bat eskaini** (12); **zuen eskaini** (7); **zuzenean eskaini** (7)

bat eskainia (89); **bat eskainia izan** (28); **bat eskainia izanen** (45); **berezi bat eskainia** (9); **da eskainia** (7); **eder bat eskainia** (7); **ere eskainia** (9); **ere eskainiak** (7); **eskainia da** (15); **eskainia dago** (7); **eskainia izan** (77); **eskainia izan da** (17); **eskainia izan zaio** (15); **eskainia izan zaiote** (8); **eskainia izanen** (109); **eskainia izanen da** (62); **eskainia izanen zaio** (10); **eskainia zaio** (7); **eskainia zen** (14); **eskainiak dira** (10); **eskainiak izan** (21); **eskainiak izan dira** (12); **eskainiak izanen** (34); **eskainiak izanen dira** (19); **omenaldi bat eskainia** (7)

akasgabea eskainiko (8); **aukera eskainiko** (53); **aukera eskainiko du** (18); **bat ere eskainiko** (7); **bat eskainiko** (178); **bat eskainiko daukute** (12); **bat eskainiko du** (66); **bat eskainiko dute** (26); **batzu eskainiko** (8); **berezi bat eskainiko** (10); **berezia eskainiko** (22); **bi eskainiko** (7); **emanaldi bat eskainiko** (7); **emanaldi eskainiko** (25); **emanaldi eskainiko ditu** (14); **emanaldi eskainiko dituzte** (9); **emanaldia eskainiko** (31); **emanaldia eskainiko du** (20); **emanaldia eskainiko dute** (9); **emanaldiak eskainiko** (8); **ere eskainiko** (51); **ere eskainiko dituzte** (7); **ere eskainiko du** (7); **ere eskainiko dute** (9); **erre oparitzat eskainiko** (7)

eskainiko da (23); **eskainiko daukute** (17); **eskainiko die** (25); **eskainiko diegu** (8); **eskainiko diela** (7); **eskainiko diete** (18); **eskainiko digu** (11); **eskainiko dio** (50); **eskainiko dion** (8); **eskainiko diot** (9); **eskainiko diote** (19); **eskainiko dira** (47); **eskainiko ditu** (218); **eskainiko ditu gaur** (10); **eskainiko dituela** (8); **eskainiko dituen** (12); **eskainiko ditugu** (13); **eskainiko dituzte** (166); **eskainiko dituztela** (7); **eskainiko dituzten** (11); **eskainiko dituzue** (11); **eskainiko dituzue erre** (7); **eskainiko dizkie** (12); **eskainiko dizkio** (17); **eskainiko dizut** (10); **eskainiko du** (440); **eskainiko du bere** (8); **eskainiko du gaur** (41); **eskainiko duela** (22); **eskainiko duen** (56); **eskainiko duen kontzerturako** (7); **eskainiko dugu** (7); **eskainiko dute** (233); **eskainiko dute gaur** (14); **eskainiko duten** (19); **eskainiko duzue** (15); **eskainiko zaie** (14); **eskainiko zaio** (16); **eskainiko zaion** (7); **eskainiko zaizkie** (8); **eskainiko zidan** (8)

eta eskainiko (8); **film eskainiko** (10); **gehiago eskainiko** (9); **hitzaldia eskainiko** (18); **hitzaldia eskainiko du** (14); **ikusgarri bat eskainiko** (8); **ikuskizun eskainiko** (7); **ikuskizuna eskainiko** (20); **ikuskizuna eskainiko du** (10); **ikuskizuna eskainiko dute** (8); **ikusteko aukera eskainiko** (11); **jaunari eskainiko** (10); **kontzertu bat eskainiko** (13); **kontzertu eskainiko** (20); **kontzertu eskainiko ditu** (14); **kontzertua eskainiko** (49); **kontzertua eskainiko du** (29); **kontzertua eskainiko dute** (15); **laguntza eskainiko** (13); **lana eskainiko** (13); **lana eskainiko du** (7); **lanak eskainiko** (15); **lanak eskainiko dituzte** (9); **mintzaldi bat eskainiko** (20); **musika eskainiko** (12); **obra eskainiko** (24); **obra eskainiko du** (8); **obrak eskainiko** (11); **obrak eskainiko ditu** (7); **omenaldi bat eskainiko** (7); **oparitzat eskainiko** (12); **parada eskainiko** (11); **prentsaurrekoa eskainiko** (7); **saio eskainiko** (7); **taldeak eskainiko** (13); **taldeak eskainiko du** (7); **zer eskainiko** (12); **zerbitzuak eskainiko** (10); **zikloa eskainiko** (7); **zuzenean eskainiko** (18); **zuzenean eskainiko du** (10)

atzo eskainitako (20); **atzo eskainitako prentsaurrekoan** (8); **bat eskainiz** (51); **batera eskainitako** (12); **batera eskainitako prentsaurrekoan** (8); **bati eskainitako** (14); **batzu eskainiz** (7); **berari eskainitako** (8); **berezi bat eskainiz** (7); **bereziak eskainiz** (7); **bilbon eskainitako** (12); **bilbon eskainitako prentsaurrekoan** (7); **burua eskainiz** (7); **donostian eskainitako** (16); **donostian eskainitako prentsaurrekoan** (9); **egunkariari eskainitako** (16); **egunkariari eskainitako elkarrizketan** (11); **eskainiriko ogiak** (12); **eskainitako agerraldian** (7); **eskainitako atalean** (12); **eskainitako datuen** (13); **eskainitako datuen arabera** (10); **eskainitako elkarrizketa** (52); **eskainitako elkarrizketa batean** (49); **eskainitako elkarrizketan** (80); **eskainitako erakusketa** (7); **eskainitako hitzaldian** (16); **eskainitako laguntza** (7); **eskainitako prentsaurreko** (14); **eskainitako prentsaurreko batean** (10); **eskainitako prentsaurrekoan** (90); **eskainiz** (8); **eskainiz eta** (18); **eskainiz gero** (7); **etbri eskainitako** (9); **etxeak eskainirik** (17); **euskadi irratiari eskainitako** (18); **euskadiri eskainitako** (20); **euskadiri eskainitako elkarrizketa** (8); **euskadiri eskainitako elkarrizketan** (12); **herriko etxeak eskainirik** (17); **irratiari eskainitako** (24); **irratiari eskainitako elkarrizketa** (8); **irratiari eskainitako elkarrizketan** (16); **jaunari eskainiriko** (16); **jaunari eskainiriko ogiak** (7); **kateari eskainitako** (11); **opariak eskainiz** (10); **radio euskadiri eskainitako** (20); **sasijainkoei eskainitako** (9); **telebista kateari eskainitako** (7)

arreta eskaintzea (7); **arreta eskaintzeko** (7); **aukera eskaintzeko** (8); **bat eskaintzea** (41); **bat eskaintzeko** (46); **baten eskaintzea** (12); **baten eskaintzeko** (16); **berriak eskaintzeko** (7); **eskaintzea da** (39); **eskaintzea erabaki** (15); **eskaintzea eta** (12); **eskaintzearekin batera** (8); **eskaintzeaz gain** (20); **eskaintzeaz gainera** (8); **eskaintzeko asmoa** (17); **eskaintzeko asmoa du** (7); **eskaintzeko asmoz** (8); **eskaintzeko aukera** (18); **eskaintzeko eta** (16); **eskaintzeko gai** (8); **eskaintzeko orduan** (9); **eskaintzeko prest** (11); **euskaraz eskaintzeko** (7); **ez eskaintzea** (9); **gehiago eskaintzea** (10); **gehiago eskaintzeko** (10); **hori eskaintzeko** (8); **laguntza eskaintzea** (9); **laguntza eskaintzeko** (14); **oparia eskaintzeko** (14); **opariak eskaintzeko** (17); **sakrifizioak eskaintzeko** (8); **zerbitzuak eskaintzeko** (11)

arretarik eskaintzen (7); **asko eskaintzen** (19); **aukera ere eskaintzen** (12); **aukera eskaintzen** (126); **aukera eskaintzen du** (44); **aukera eskaintzen dute** (8); **babesa eskaintzen** (8); **bakarrik eskaintzen** (12); **bat dauku eskaintzen** (7); **bat eskaintzen** (185); **bat eskaintzen dauku** (11); **bat eskaintzen digu** (9); **bat eskaintzen dio** (10); **bat eskaintzen du** (26); **bat eskaintzen dute** (11); **bat eskaintzen zion** (7); **batek eskaintzen** (10); **batzuk eskaintzen** (15); **berak eskaintzen** (12); **bere burua eskaintzen** (9); **berezi bat eskaintzen** (11); **berezia eskaintzen** (13); **bermerik eskaintzen** (9); **berriak eskaintzen** (19); **bizienak eskaintzen** (36); **bizienak eskaintzen ditugu** (35); **bizitzak eskaintzen** (10); **burua eskaintzen** (16); **da eskaintzen** (8); **dauku eskaintzen** (11); **denbora eskaintzen** (7); **dituzten guzieri eskaintzen** (10); **dolumin bizienak eskaintzen** (27); **doluminak eskaintzen** (199); **doluminak eskaintzen ditugu** (191); **doluminik bizienak eskaintzen** (7); **du eskaintzen** (9); **dute eskaintzen** (7); **ederra eskaintzen** (8); **egiteko aukera eskaintzen** (11); **egun eskaintzen** (7); **ek eskaintzen** (7); **ere eskaintzen** (75); **ere eskaintzen ditu** (14); **ere eskaintzen du** (17)

eskaintzen ahal (15); **eskaintzen ari** (69); **eskaintzen ari da** (10); **eskaintzen baitu** (12); **eskaintzen baitute** (8); **eskaintzen da** (12); **eskaintzen dauku** (26); **eskaintzen daukun** (7); **eskaintzen daukute** (12); **eskaintzen dauzkigu** (8); **eskaintzen den** (31); **eskaintzen die** (57); **eskaintzen diegu** (11); **eskaintzen diela** (10); **eskaintzen dien** (28); **eskaintzen diet** (7); **eskaintzen diete** (22); **eskaintzen dieten** (7); **eskaintzen digu** (63); **eskaintzen digun** (22); **eskaintzen diguna** (12); **eskaintzen digute** (13); **eskaintzen dio** (66); **eskaintzen diogu** (10); **eskaintzen dion** (37); **eskaintzen diot** (15); **eskaintzen diote** (36); **eskaintzen dioten** (10); **eskaintzen diozkategu** (16); **eskaintzen dira** (18); **eskaintzen diren** (39); **eskaintzen dit** (13); **eskaintzen ditu** (142); **eskaintzen dituela** (11); **eskaintzen dituen** (112); **eskaintzen dituen aukerak** (7); **eskaintzen dituena** (8); **eskaintzen ditugu** (415); **eskaintzen ditugu bi** (7); **eskaintzen ditugu dolumin** (11); **eskaintzen ditugu doluminak** (7); **eskaintzen ditugu familia** (21); **eskaintzen ditugu familiari** (21); **eskaintzen ditugu gure** (123); **eskaintzen ditugu haren** (25); **eskaintzen ditugu hil** (107); **eskaintzen dituzte** (48); **eskaintzen dituztela** (8); **eskaintzen dituzten** (54); **eskaintzen dituztenak** (11); **eskaintzen dizkien** (10); **eskaintzen dizkiete** (16); **eskaintzen dizkieten** (7); **eskaintzen dizkigu** (26); **eskaintzen dizkigun** (20); **eskaintzen dizkigute** (17); **eskaintzen dizkiguten** (8); **eskaintzen dizkio** (16); **eskaintzen dizkion** (19); **eskaintzen dizkioten** (7); **eskaintzen dizu** (9); **eskaintzen dizut** (14); **eskaintzen du** (225); **eskaintzen duela** (24); **eskaintzen duen** (151); **eskaintzen duena** (22); **eskaintzen dugu** (16); **eskaintzen dute** (85); **eskaintzen dutela** (11); **eskaintzen duten** (68); **eskaintzen eta** (25); **eskaintzen ez** (63); **eskaintzen ez duen** (9); **eskaintzen hasi** (14); **eskaintzen saiatu** (7); **eskaintzen zaie** (10); **eskaintzen zaien** (18); **eskaintzen zaio** (12); **eskaintzen zaion** (13); **eskaintzen zaizkie** (7); **eskaintzen zaizkien** (9); **eskaintzen zidan** (48); **eskaintzen zien** (36); **eskaintzen zieten** (9); **eskaintzen zigun** (10); **eskaintzen ziola** (11); **eskaintzen zion** (81); **eskaintzen zioten** (21); **eskaintzen zituen** (37); **eskaintzen zituzten** (21); **eskaintzen zitzaion** (10); **eskaintzen zizkidan** (14); **eskaintzen zizkien** (13); **eskaintzen zizkieten** (9); **eskaintzen zizkion** (25); **eskaintzen zuela** (10); **eskaintzen zuen** (66); **eskaintzen zuten** (31)

eta eskaintzen (22); **ezagutzeko aukera eskaintzen** (8); **ezin hobea eskaintzen** (7); **familia guziari eskaintzen** (11); **familia guzieri eskaintzen** (8); **familiari eskaintzen** (16); **familiari eskaintzen ditugu** (14); **familieri eskaintzen** (30); **familieri eskaintzen ditugu** (30); **gehiago eskaintzen** (33); **goresmenak eskaintzen** (31); **goresmenak eskaintzen diozkategu** (7); **goresmenak eskaintzen ditugu** (16); **gure doluminak eskaintzen** (164); **gure goresmenak eskaintzen** (10); **gutxi eskaintzen** (14); **guziari eskaintzen** (28); **guziari eskaintzen ditugu** (27); **guzieri eskaintzen** (28); **guzieri eskaintzen ditugu** (22); **guztia eskaintzen** (8); **handia eskaintzen** (14); **handiagoa eskaintzen** (16); **handiari eskaintzen** (12); **handiari eskaintzen ditugu** (12); **handirik eskaintzen** (8); **hau eskaintzen** (9); **hemen eskaintzen** (7); **herriak eskaintzen** (13); **hobea eskaintzen** (9); **honek eskaintzen** (9); **hori eskaintzen** (11); **horiek eskaintzen** (8); **horien familieri eskaintzen** (17); **horrek eskaintzen** (12); **ikusteko aukera eskaintzen** (7); **jendaki guziari eskaintzen** (13); **jendaki handiari eskaintzen** (11); **jendakiari eskaintzen** (9); **jendakiari eskaintzen ditugu** (9); **laguntza eskaintzen** (29); **maitasuna eskaintzen** (9); **oparia eskaintzen** (14); **opariak eskaintzen** (22); **orain eskaintzen** (7); **osoa eskaintzen** (15); **parada eskaintzen** (12); **paregabea eskaintzen** (7); **sakrifizioak eskaintzen** (12); **soilik eskaintzen** (8); **truke eskaintzen** (8); **ugari eskaintzen** (9); **zabala eskaintzen** (11); **zer eskaintzen** (30); **zerbait eskaintzen** (7); **zerbitzua eskaintzen** (26); **zerbitzuak eskaintzen** (19); **zerbitzuak eskaintzen dituzten** (7); **zorionak eskaintzen** (7)

eskaintzera joan (8); **jaunari sakrifizioak eskaintzera** (10); **oparia eskaintzera** (10); **opariak eskaintzera** (11); **sakrifizioak eskaintzera** (17)

---

eskainika ik **eskainka**.

---

eskainka *(orobat **eskainika** g.er.)* **1** *adlag* eskaintzen.

Azalean bi gizon ikusten ziren elkarri ukabilak **eskainka**, trakeski irudikatuak. Bernardo Atxaga

Hurrengo larunbatean azaldu nintzen boleran, lasai, Peter Stuyvesant **eskainka**. Koldo Izagirre

Iturri garbiak eta erreka bizi-biziak, ugari eta bete-betean ur gardenak eta onak **eskainka**. Patxi Ezkiaga

Geu ginen, esaten dizute ordea eskuineko euskal abertzaleek, geu ginen urtero hemen azaltzen ginenak lore **eskainka**, Euskal Herriaren menpekotasuna salatu eta Espainiaren harrokeria jotzeko. Koldo Izagirre

• **2** (izen gisa)

Halaxe egin zuen Don Kijotek; elkarri **eskainka** bizian jardun zuten biek, zein baino zein areago. Patxi Ezkiaga

---

eskainte *iz* eskaintza.

Philipek 1997an utzi zuen Londres jaioterria, Altra musika bandako kideekin batera, disketxe amerikar batek New Yorken diskoa grabatzeko egin zien **eskainteari** jarraituz. Harkaitz Cano

Botere politikoa, azoka libre bateratua, lehia librearen eta eske-**eskaintearen** legea produkzioan eta banakuntzan, bai horixe lortu zituela horiek denak. Joxe Azurmendi

---

eskaintza *(orobat **eskeintza** g.er. eta **eskentza** g.er.)* **1** *iz* ondasunez eta kidekoez mintzatuz, norbaiten eskuko jartzea, har dezan eskatuz.

Ezarri zuten kutxa harri handiaren gainean, eta Bet-Xemexeko jendeak erre-opariak eta **eskaintzak** egin zizkion Jaunari egun hartan. Elizen arteko biblia

Jaunaren etxera eraman zituen bere aitak eta berak eginiko **eskaintzak** : zilarra, urrea eta ontziak. Elizen arteko biblia

Zin egin diot Eliren senitarteari, ezin izango duela sekula bere gaiztakeria garbitu, ez opariak eginez, ez **eskaintzak** ekarriz. Elizen arteko biblia

Lehen fruituen **eskaintza** eta fede-aitorpena. Elizen arteko biblia

Erre-oparien **eskaintza** bukatu arte jardun zuten kantatzen eta turutak jotzen. Elizen arteko biblia

Oparien **eskaintza** bukatzean, Davidek bedeinkatu egin zuen herria Jaunaren izenean. Elizen arteko biblia

Egin nahi den edo egin daitekeen tituluen **eskaintzari** buruz aritzen garenean, gizarteak zer behar duen, zer eskatzen digun, eta horrelako galderak etortzen zaizkigu gogora. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Orokorra izan beharko litzateke unibertsitate ikasketen **eskaintzaren** plangintza, eta administrazioari egokitu beharko litzaioke plangintza horren erantzukizun handiena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Urtero graduondoko ikastaroetan parte hartzen duten 150 ikasle eta irakasleei esker, hasieran eskaintzen ziren 370 eskola orduetatik 2.250 orduko **eskaintzara** pasako dira. Berria - Euskal Herria

Neure idiak emanen dizkizut erre-oparirako, eultziak egurretarako eta garia **eskaintzarako** . Elizen arteko biblia

Eskaintza egin zionean, neskak hogeita lau ordu eskatu zizkion erantzuna emateko. Karlos Zabala

Garai hartantxe iritsi zitzaidan Escher-Wyss-en **eskaintza** : aukera aparta ingeniari gazte batentzat. Joxe Austin Arrieta

-Nire **eskaintza** aintzat hartu behar huke, horrelako garaipenak ez dituk askotan izaten. Josu Landa

Eskaintza luzatua nion bere autostop-bidaia nirekin egin zezan, nik eskura neukalako Williamsen Citröena. Joxe Austin Arrieta

-Aprobetxatuko dut zure **eskaintza** . Josu Zabaleta

Sei urterekin hasi zen bertan eta 21 egin arte jarraitu, Aspek eta Asegarcek egindako **eskaintzetatik** lehenengoarena onartu zuen arte. Berria - Kirola

Petrolio konpainia erosteko **eskaintzetan** Espainiako Gobernuak jada ez du indarrik. Berria - Ekonomia

Honelako **eskaintzetan** ohi den bezala, harpidedunek are merkeago eta errazago eskuratu ahal izango dituzte filmak: kaleko prezioan baino %20 merkeago hain zuzen. Berria - Kultura

EAEko hezkuntza sistemako behin-behineko irakasleek lan egonkortasuna izateko 2004ko dekretuan hainbat baldintza ezarri zirela gogorarazi du Hezkuntza Sailak: sailak deitutako Enplegu Publikorako **Eskaintzetara** aurkeztea. Berria - Harian

2 irud/hed

Adio, andrea, har ezazu ontasunez nire sentimenduen **eskaintza** ; ez dio deus kalterik egiten nire errespetuaren **eskaintzari** . Jon Muñoz

Begira, neure idiak emanen dizkizut erre-oparirako, eultziak egurretarako eta garia **eskaintzarako** . Elizen arteko biblia

Jaunari eskainiriko ogiez, **eskaintzetarako** ogi-irinaz, legamigabeko opilez, zartaginan erretako opilez, oliotan bustiriko taloez, pisu eta neurriez ere arduratu behar zuten. Elizen arteko biblia

Jendea kexu da osasun zerbitzu publikoen **eskaintza** nahikoa ez delako. Berria - Gaiak

250 dei irratietarat eta 15.000 euroren **eskaintza** . Herria

13 1/2 etan: Bazkaria eta medailen **eskaintza** . Herria

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Emazteak, jeneralean, senarraren **eskaintza** eskuzabalari ezetz esaten zion, eta irakurtzera joaten zen, egongela esaten zioten gelako bazter batera. Eskarne Mujika

Demetrio I.ak beste **eskaintza** berriak egin Jonatani. Elizen arteko biblia

Ontzi hondoratuko marinela azken oholari nola, halaxe atxiki gintzaizkion **eskaintza** zekenari. Aingeru Epaltza

Aldare handiaren gainean egin behar dituzu goizeko erre-oparia eta arratseko **eskaintza** . Elizen arteko biblia

Bezero gehienak gizonezkoak ziren eta ezin zioten gure **eskaintza** kilikagarriaren tentazioari eutsi. Jon Arretxe

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egungo ikusmoldeek, aldiz, biziki azpimarratzen dute **eskaintza** -egiturak munduko eskariaren joeretara ongi egokitu beharra. Koro Navarro

Ildo horretan doaz Ortegaren hitzak, Aviranetari eta haren asmatzaileari buruzko bere lanaren **eskaintza** -orrian ipiniak: [...]. Josu Zabaleta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urtero, letra galegoen karietarat, lore **eskaintza** egiten zaio Castelaori txoko honetan maiatzeko azken igandean. Koldo Izagirre

12-tan, lore-**eskaintza** haren hil-hobian. Herria

Nazkatuta nago lan-**eskaintzak** irakurtzeaz. Lopez de Arana

Txapelketa bururatu bezain laster lan **eskaintza** ederra egin zidaten Floridan aritzea proposatuz. Ramuntxo Etxeberri

Ez du hainbeste ezkon-**eskaintzarik** ere aukeran. Mirentxu Larrañaga

Apaizak, eskaria entzun zitzaiolako debozioz beterik eta mesedeagatik esker oneko, gari-**eskaintza** egiten die urtero behartsuei San Frantziskoren maitasunagatik. Askoren artean

Egun hartan Jaunaren etxe aurreko atariaren erdi aldea sagaratu zuen erregeak, erre-opariak, labore-**eskaintzak** eta bake-oparietako gantzak bertan eskaintzeko. Elizen arteko biblia

Arratsaldeko intsentsu-**eskaintza** egin ohi zen ordu berean, Juditek deiadar egin zion ahots handiz Jaunari, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

Ardo-**eskaintzak** egin, eta bakoitza bere etxera joan zen lotara. Juan Kruz Igerabide

Agindu iezaiezu lur- eta ur-**eskaintzak** prestatzeko, menpekotasunaren seinaletzat. Elizen arteko biblia

Judea herrialdera heldurik, mezulariak igorri zizkieten Judasi eta anaiei gezurrezko bake-**eskaintzak** egitera. Elizen arteko biblia

Astelehena zen, baina igandekoa erosi zuen, iragarki laburretan zekarren sexu-**eskaintza** zabala miatzeko. Migel Angel Mintegi

Aurreratu eta ekarri Jaunaren etxera zeuen oparigaiak eta gorespen-**eskaintzak** . Elizen arteko biblia

Asko ikusten genuen Frantziako A2 katea, hemengo telebista **eskaintza** oraindik ere egungoa baino pobreagoa zenean Donostian ongi hartzen zelako eta saioen ordutegia hobeto egokitzen zitzaigulako, gaueko filmarena batez ere. Ramon Saizarbitoria

Hauxe da haren kontra-**eskaintza** : Goza ezazu, lagun, gozatu eta ez epaitu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

6 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Irratia, Radio Segurako kantu **eskaintza** orduaren sintonia. Jon Maia

Irratia, Radio Segurako kantu **eskaintza** orduaren sintonia. Jon Maia

UDAKO OPORRETARAKO LAN **ESKAINTZA** DEIA. Herria

7 (ekonomian eta merkataritzan) ondasunez eta kidekoez mintzatuz, salgai jartzea. ik**eskari**.

Ez batak ez besteak ez zuen zuzenean sortuko merkatu autoarautuaren konkurrentziazko sistema, zeinean gauza orok salgai bihurtzeko joera baitu eta prezioa **eskaintza**

eta eskaria aurrez aurre jartzearen emaitza baita, eta eskaria eta **eskaintza** ere, aldi berean, prezioen arabera aldatzen baitira. Koro Navarro

Prezioen beherakadak, gainera, iraunkorra eta handi samarra beharko du izan, **eskaintza** erreakzionatzen has dadin. Koro Navarro

Banku zentralak, ez baitu diruaren parekotasunaz arduratu beharrik -diruaren gorabeherek automatikoki orekatzen baitituzte dibisen **eskaintza** eta eskaria-, nazio barneko auziak huts-hutsik kontuan izanik gida dezake bere diru-politika. Koro Navarro

Merkatu horiek, ororen gainetik, merkatarien beren topaleku ziren, eta ez azken eskariak (kontsumozkoak) eta lehen **eskaintzak** (ekoizpenak) bat egiten zuten lekua. Koro Navarro

Baldin aldagai nominalak (prezioak eta soldatak) truke-tasen bariazioari berehala egokitzen ez bazaizkio, konkurrentziaren ondoriozko hobetzeari esker, **eskaintza** nazionalaren alde aldatuko da merkatu-kuota, eta horrela bigundu egingo da krisiaren lehen efektu atzeragarria. Koro Navarro

Diruaren hazkundeak **eskaintza** potentzialaren hazkundearekin batera joan behar zuen, horixe baitzen inflazio-iragarpenak aldatzeko eta prezioen egonkortasuna berreskuratzeko modu bakarra. Koro Navarro

Ikaragarri handia zen **eskaintza**. Migel Angel Mintegi

Gehiegizko **eskaintza** denean, saltzaileek prezioak beherantz jaitsiko dituzte, ez baitira bestela produkzioa saltzeko gai izango. Iñaki Heras

8 (ekonomian eta merkataritzan, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskaintza eta eskaria, hori da dena. Urtzi Urrutikoeetxea

Ondasunen eta zerbitzuen **eskaintza** eskasia dagoenez, enpresek gutxiago ekoizten dute eta lanpostuak deuseztatu egiten dira. Iñaki Heras

Reaganen administrazioak abian jarritako **eskaintza**-politika sarritan berrikuntza teoriko hutsa balitz bezala hartu bada ere, Estatu Batuen indarraren beheraldiaren kontrako erreakzioa izan zen beste ezer baino gehiago. Koro Navarro

Ekonomikoki jarduera apala da bertsolariena, **eskaintza**-eskari jokoa kanpoko esku-hartzerik gabe doitzen duena eta, beraz, eragile komertzial edo babes publikoarekiko menpekotasunik gabea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

9 (ekonomian eta merkataritzan, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Diru politika, bi hitzetan esanda, diru **eskaintzaren** eta interes tasen kontrolean datza. Iñaki Heras

Hegoaldetik datorren lan-**eskaintza** ia mugarik gabe da elastikoa. Koro Navarro

Diru-politika independente baten abantaila nagusia, monetaristen iritziz, diru-**eskaintza** kontrolatuz, inflazioaren aurkarko borrokari erabateko lehentasuna eman ahal izatea da. Koro Navarro

Merkatu horien dolar-**eskaintza**, alde batetik, Estatu Batuetako erakunde eta enpresetatik zetorren, interes-tasa guztiz apalak atzera eragiten baitzieten. Koro Navarro

Herrialde batek, beraz, gehiago irabaziko du trukean zenbat eta sendoagoa izan inportazio-eskariaren prezio-elastikotasuna, eta zenbat eta ahulagoa izan esportazio-**eskaintzaren** prezio-elastikotasuna. Koro Navarro

Epe laburreko **eskaintzaren** zurruntasuna, bestalde, are handiagoa izaten da garapen-bideko herrialdeek ekoizpena esportaziora bideratua dutenean. Koro Navarro

Barne-**eskaintzaren** zurruntasuna, eta, bereziki, esportazio-**eskaintzarena**, hain izaten da handia, non aurrezkia gehitzeak ez baitu ekartzen nahitaez kanpoko defizita gutxitzea. Koro Navarro

10 norbaiti zerbait, eskuarki liburu edo arte lan bat, eskaintzean, ezartzen diren hitzak.

Eskaintza, liburua bezala, noiz-eta neu jaio nintzen urtean izkiriatua zen. Edorta Jimenez

Zalantza neukan **eskaintzari** buruz: ala Intxortako herritar eroriei eta Julian Lasari, *in memoriam* ezinbestean, ala Jontxu Muñagorriri, txikitako bere kontakizunekin nire irudimenaren txingarrei haizea emateagatik. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskaintzak zetozen aurrena: Lizi eta Sarari, osaba Juani, bere ama Carmeni, Obabako gure lagun Lubis zenari. Bernardo Atxaga

Begiak txitxildu eta, idazkera kiribildu batez, honako **eskaintza** hau irakurri ahal izan nuen: "W.P. Weber standartenführerrari, Reicheko arimarik sentiberenetako bati, esker onez". Alberto Ladron Arana

"Je n'oublierai jamais nos promenades dans Londres" zioen **eskaintzak**. Ramon Saizarbitoria

Bi liburuek kortesia orrietan, letra handi eta argiaz, **eskaintza** hitz batzuk zituztela idatzita egiaztatu ondoren, atzeratu egin nuen haien irakurketa. Ramon Saizarbitoria

"Txakurrak lurperatuko ditut, non esaten badidazu", egiten dio **eskaintza**. Oskar Arana

Salbatore Mitxelena, Orixe eta Nemesio Etxaniz **eskaintzan** aipatu idazleen estiloa errepikatzen du Mendigurenek, A. protagonistaren kide izan zitezkeen apaiz euskaltzaleena. Markos Zapiain

Lehen orrialdean **eskaintza** lerro bat: "Ene kusi maiteari, esker beroenekin". Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste Beatriz batzuk ere ageri dira Borgesen aipu-**eskaintzetan** (ez beti Beatriz izenez). Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

abertzalearen eskaintza (6); **azken eskaintza** (41); **baina eskaintza** (8); **baino eskaintza** (9); **baten eskaintza** (20); **beharia lan eskaintza** (8); **bere eskaintza** (27); **berritzeko eskaintza** (7); **beste eskaintza** (21); **beste eskaintza bat** (10); **betetzeko eskaintza** (5); **bi eskaintza** (9); **da eskaintza** (18); **den eskaintza** (6); **dio eskaintza** (7); **dion eskaintza** (8); **diru eskaintza** (11); **du eskaintza** (14); **duen eskaintza** (21); **dute eskaintza** (9); **edo eskaintza** (5); **egin duen eskaintza** (5); **egin eskaintza** (5); **egin zuen eskaintza** (5); **egindako azken eskaintza** (11); **egindako erosteko eskaintza** (12); **egindako eskaintza** (44); **eginiko eskaintza** (23); **egiteko eskaintza** (13); **egiten duen eskaintza** (6); **enpresaren eskaintza** (9); **ere eskaintza** (17); **erosketa eskaintza** (26); **erosketa eskaintza publikoa** (6); **erosteko eskaintza** (105); **erosteko eskaintza egin** (10); **erosteko eskaintza publiko** (16); **erosteko eskaintza publikoa** (41); **erosteko eskaintza publikoak** (6); **erosteko eskaintza publikoari** (5)

eskaintza aintzat (5); **eskaintza arbuiatu** (6); **eskaintza aurkeztu** (5); **eskaintza bakarra** (6); **eskaintza bat** (65); **eskaintza bat egin** (17); **eskaintza bati** (8); **eskaintza batzuk** (8); **eskaintza baztertu** (7); **eskaintza bera** (9); **eskaintza bere** (6); **eskaintza berezia** (7); **eskaintza berri** (8); **eskaintza berri bat** (5); **eskaintza berria** (12); **eskaintza berriak** (7); **eskaintza bi** (5); **eskaintza da** (9); **eskaintza dela** (8); **eskaintza du** (6); **eskaintza edo** (6); **eskaintza egin** (164); **eskaintza egin die** (7); **eskaintza egin dio** (15); **eskaintza egin du** (13); **eskaintza egin eta** (5); **eskaintza egin zidan** (10); **eskaintza egin zien** (6); **eskaintza egin zion** (21); **eskaintza egin zuen** (5); **eskaintza eginen** (5); **eskaintza egingo** (21); **eskaintza egingo du** (7); **eskaintza egitea** (11); **eskaintza egiteko** (9); **eskaintza egiten** (35); **eskaintza egitera** (5); **eskaintza ekonomiko** (5); **eskaintza ere** (11); **eskaintza erredakzioa** (5); **eskaintza errefusatu** (9); **eskaintza eta** (44); **eskaintza euskal** (5); **eskaintza ez** (32); **eskaintza ez da** (10); **eskaintza ezin** (6); **eskaintza guztiak** (15); **eskaintza handiagoa** (5); **eskaintza handitu** (5); **eskaintza hau** (10); **eskaintza hobea** (6); **eskaintza hobetu** (10); **eskaintza hori** (24); **eskaintza horiek** (6); **eskaintza horrek** (8); **eskaintza horren** (6); **eskaintza horri** (10); **eskaintza hura** (5); **eskaintza izan** (5); **eskaintza jaso** (11); **eskaintza kontuan** (5); **eskaintza on** (6); **eskaintza ona** (8); **eskaintza onartu** (51); **eskaintza onartu eta** (6); **eskaintza onartu zuen** (6); **eskaintza onartuko** (5); **eskaintza onartzea** (11); **eskaintza onartzeko** (12); **eskaintza onartzeko prest** (5); **eskaintza onartzen** (6); **eskaintza oso** (11); **eskaintza politikoa** (14); **eskaintza publiko** (28); **eskaintza publiko eep** (6); **eskaintza publikoa** (94); **eskaintza publikoa eep** (14); **eskaintza publikoa egin** (7); **eskaintza publikoa egingo** (8); **eskaintza publikoa egiteko** (6); **eskaintza publikoa sep** (6); **eskaintza publikoak** (14); **eskaintza publikoan** (11); **eskaintza publikoaren** (9); **eskaintza publikoari** (9); **eskaintza publikorik** (6); **eskaintza seaska** (18); **eskaintza serioa** (5); **eskaintza zabala** (27); **eskaintza zabalagoa** (6); **eskaintza zabaldu** (5); **eskaintza zehatzik** (5)

eskaria eta eskaintza (8); **eta eskaintza** (73); **eta medailen eskaintza** (7); **eten eskaintza** (8); **euren eskaintza** (5); **euroko eskaintza** (12); **euroko eskaintza egin** (6); **euskarazko eskaintza** (14); **ez zuen eskaintza** (6); **ezker abertzalearen eskaintza** (6); **gas naturalen eskaintza** (5); **gehiegizko eskaintza** (6); **gure eskaintza** (9); **hainbat eskaintza** (8); **hartzeko eskaintza** (7); **hiru eskaintza** (5); **ikasketen eskaintza** (9); **jarraitzeko eskaintza** (6); **joateko eskaintza** (8); **joateko eskaintza egin** (5); **kultur eskaintza** (10); **lan eskaintza** (140); **lan eskaintza euskal** (5); **lan eskaintza publikoa** (26); **lan eskaintza publikoan** (5); **lan eskaintza seaska** (18); **lore eskaintza** (41); **lore eskaintza egin** (12); **lore eskaintza egingo** (9); **lore eskaintza eta** (6); **luzatzeko eskaintza** (5); **medailen eskaintza** (7); **milioi euroko eskaintza** (9); **naturalen eskaintza** (5); **nire eskaintza** (5); **onen eskaintza** (5); **patronalaren eskaintza** (5); **petrolio eskaintza** (5); **publikoen eskaintza** (5); **saltzeko eskaintza** (31); **saltzeko eskaintza publiko** (5); **saltzeko eskaintza publikoa** (10); **sarearen eskaintza** (5); **su eten eskaintza** (8); **taldearen eskaintza** (6); **tituluen eskaintza** (5); **zen eskaintza** (7); **zion eskaintza** (6); **zuen eskaintza** (25); **zure eskaintza** (8); **zuten eskaintza** (7); **zuzendaritzaren eskaintza** (7)

beste eskaintzarik (6); **borondatezko eskaintzak** (5); **du eskaintzarik** (5); **egindako eskaintzak** (10); **egindako eskaintzarekin** (5); **egindako eskaintzari** (6); **eskaintzak aurrera** (6); **eskaintzak egin** (7); **eskaintzak egiteko** (5); **eskaintzak egiten** (8); **eskaintzak ere** (14); **eskaintzak eta** (11); **eskaintzak ez** (13); **eskaintzak izan** (7); **eskaintzak jaso** (7); **eskaintzan eta** (6); **eskaintzarekin bat** (6); **eskaintzaren alde** (5); **eskaintzaren arabera** (8); **eskaintzaren arteko** (7); **eskaintzaren aurka** (6); **eskaintzaren barruan** (5); **eskaintzaren bat** (18); **eskaintzaren berri** (6); **eskaintzaren eta** (6); **eskaintzari aurre** (5); **eskaintzari buruz** (6); **eskaintzari muzin** (7); **eskaintzari uko** (8); **eskaintzari uko egin** (5); **eskaintzarik egin** (14); **eskaintzarik ere** (5); **eskaintzarik ez** (16); **eskaintzarik jaso** (16); **eskariaren eta eskaintzaren** (12); **eta eskaintzak** (14); **eta eskaintzaren** (24); **eta eskaintzaren arabera** (5); **eta eskaintzaren arteko** (5); **ez du eskaintzarik** (5); **lan eskaintzak** (8); **lore eskaintzak** (7); **zion eskaintzari** (6)

---

eskaintzagai *iz* eskaintzarako gaia.

Gauza bat da maitagogoak jatekoa edo emazte-hartzea **eskaintzagai** izatea norbaiten edo zerbaiten alde, bakoitzak bere gogoko maitagarritasunaren hierarkiari begiratuz. Jenaro Garate

---

eskaintzaile *(orobat bat **eskaintzale**) izond* eskaintzen duena.

Diruak, beste edozein ondasun edo zerbitzuk bezala, erosle edo eskatzaile batzuk ditu eta saltzaile edo **eskaintzaile** batzuk. Iñaki Heras

Elkartasun-oparia Jaunari eskaintzean, **eskaintzaileak** Jaunari dagokion zatia aurkeztuko du. Elizen arteko biblia

Eskaintzaileak eskua ezarriko dio buruan, eta Jaunak bere bekatuen ordaintzat onartuko dio. Elizen arteko biblia

Gantzak erre baino lehen ere, apaizaren morroia etorri eta honela mintzatu ohi zitzaion **eskaintzaileari**: -Emadazu haragia, apaizarentzat erre dezadan. Elizen arteko biblia

---

eskaintzale ik **eskaintzaile**.

---

eskaintzatxo *iz* eskaintza xumea.

Atenasek ezin konta ahala biztanle zituen; lurraldea antzua zen: arau erlijioso batek ezarri zuen jainkoei **eskaintzatxoak** egiten zizkietenek idiak eskaintzen zizkietenek baino gehiago ohoratzen zituztela. Iñaki Iñurrieta

---

eskaintze *iz* ondasunez eta kidekoez mintzatuz, norbaiten eskuko jartzea, norbaiti aurkeztu har dezan eskatuz.

Larunbateko eguna izan da lasartar, garaztar eta oztibartarrentzat besta egun guziz pollita: haurrak kantuz eta bertsuka, musika, opari **eskaintze**, bazkari alai. Herria

Gu, geure aldetik, etengabe oroitzen gara beti zuetaz, jai eta beste egun jakinetan egin ohi ditugun opari-**eskaintze** eta otoitzetan. Izan ere, egoki da eta zuzen senideez oroitzea. Elizen arteko biblia

Esan zidan beste lanik ezean halaxe irabazten zuela bizimodua, esaerok hark berak bildu eta orriotara eramandakoak zirela, eta etxez etxe zihoala **eskaintze**-jardun horretan. Josetxo Azkona

· Kontsumitzaileari informazio ona garaiz **eskaintze** hutsa ez da beti erabateko bermea, panazea. Edorta Agirre

---

eskaintzeke *adlag* eskaini gabe.

Erabaki horiek finantza merkatuei buruzko estatu erregulazioak ahuldu dituztela, eredu alternatiborik **eskaintzeke**. Iñaki Heras

Gero, lurrean zeutzan bi puskei begirik **eskaintzeke**, etorritako tokitik joan zen berriro pauso arinez. Felipe Juaristi

---

eskainu *iz* parlamentuko aulkia.

Euskobarometroak bildutako boto asmoari buruzko inkestaren arabera, EAJ, EA eta EB-Berdeak alderdien arteko hirukoak ez luke lortuko gehiengo osoa **eskainuren** bat irabazteko aukera izan arren. Berria - Euskal Herria

Ez dio parlamentuan duen **eskainuari** uko egingo. Berria - Mundua

Bordeleko ganberako **eskainuetan**, abertzaleentzat ere ez da deus aldatuko. Berria - Euskal Herria

Nafarroa Baik **eskainua** espero du. Berria - Euskal Herria

Zubimendik urtarrilean bere parlamentari **eskainuari** uko egin zionean bere aforatu izaera galdu zuen. Berria - Euskal Herria

---

eskaiola *iz* kiskalitako igeltsu fina.

Aulki batekin pare bat aldiz zolan jo, komunikazio gelako sabaitik **eskaiola** erorarazi arte. Fernando Rey

Eskaiola pitzatua sabaian. Eider Rodriguez

Obretan zegoen ezkerreko etxea: zakar kontainerra aurrean, zur plantxak atarian, kristalik ez leiho zuloetan, leihoz barrura **eskaiola** plakak, igeltsu zakuak, trasteak han eta hemen. Pablo Sastre

Zoruan harri xehe batzuk, harraskan eta kubiertoen gainean hauts lodi bat eta **eskaiola** zatiak, dena kakaztuta zegoen. Pablo Sastre

Ni ez nintzela **eskaiolazko** ama birjina. Lopez de Arana

---

eskaka *adlag* eskatzen.

Eta geltokiko burua **eskaka** behin eta berriz utz ziezaiotela arropaz aldatzen, behin eta berriz esaka bazuela beste lanjantzi bat garbia. Fernando Rey

Nadia lasterka abiatu zen, erabat aztoratuta, beheko aretoetan zehar, bere lagunari deika, duke handiaren aurrera eraman zezaten **eskaka**. Karlos Zabala

Orduan beste biak **eskaka** eta erreguka hasi zitzaizkion, harik eta Zaitak, gogoz kontra, etsitzeko plantak egin zituen arte. Patxi Zubizarreta

Beti **eskaka** zen. Ander Irizar

Garrasi egiten entzun zuten, aterkia **eskaka**. Koro Navarro

---

eskakeatu, eskakea(tu), eskakeatzen da *ad adkor* disimuluan hanka egin.

Lanordu gutxi, **eskakeatzeko** aukera anitz, eta neskatilak nonahi. Iban Zaldua

---

eskaketan *adlag* eskatzen.

Itzulpen gisara letorke geurean errana: Arbia nagusiari **eskaketan**: Erein nazak, burua nadin San Andresetan. Pello Zabala

---

eskakizun 1 *iz* eskaria, eskuarki eskari hertsia.

Iparraldeko Herriko Etxe guzietan, edo bederen gehientsuenetan, antolatuak dira elgarretaratzeak, Batera plataformaren lau **eskakizunen** inguruan: euskararen ofizialtasuna, euskal departamendua, Euskal Herriko laborantxa ganbara, Euskal Herrian berezko unibertsitatea. Herria

Euskararen berpiztea, administrazio elebiduna, presoen hurbilketa, euskal departamendua... ez da **eskakizunik** falta, Euskal-Herriaz doi bat axolatzen denarentzat. Herria

Giza elkarte horiek bi **eskakizun** plazaratzen dituzte: batetik administrazioak aitzinetik ekar dezala neguko hotzek sortzen dioten eginbidearen betetzeko dirua, eta bestetik gauaz aterbe gabeen errezibitzeko gune bat iraunkorra idek dezala Baionako alde hauetan. Herria

Munstrokeria bat zena, giza erailketa, bat-batean etika iraultzailearen **eskakizuna** zen. Joseba Zulaika

Eskakizuna egiteko, han zeuden munduko hainbat lekutako pertsonak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Prest zegoen haren edozein **eskakizun** entzuteko. Koldo Biguri

Akta hura laburregia ez ote zen aipatzen ausartu zenean, **eskakizuna** bideratzeko behar ziren alderdi garrantzitsu guztiak jasotzen zituela esan zuen notarioak. Ramon Saizarbitoria

Hala ere, gizonak euren **eskakizunak** lortzeko zorian daude. Lopez de Arana

Zuzendaritzari **«eskakizunak** aintzat ez hartzea» egotzi zion ELAko ordezkariak. Berria - Ekonomia

Zein dira zure **eskakizunak**? Koldo Izagirre

Daukagun aukera bakarra, epaileari gure **eskakizunak** bidezkoak direla erakustea da. Berria - Ekonomia

Gela hartan entzuten zituen bere menekoek ekarritako kexak eta **eskakizunak**, bertan banatzen zituen eske zetozenen artean laguntzak eta ondasunak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Brown jaunaren **eskakizunak** harago zihoazen, eraginkortasuna zuten helburu. Karlos Linazasoro

Rock izarren **eskakizunek** aspertu egin zuten: bati zazpi urteko 'whiskey' eskoziarra eskaini behar zitzaion, beste bati luxuzko egongela bat antolatu behar, azken bati Kolonbiako kalitatezko kokaina. Ramuntxo Etxeberri

Alferrik bidali zituen hainbat **eskakizun** "Comité de Súreté Générale"ra, eta heriotza-zigorra eman zioten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mutila, zeina ni baino gazteagoa baitzen eta era berean ederki burusoildua, gogor saiatzen zen maiteñoaren **eskakizunak** betetzen, jubilatu urrezko txarteldun talde bati zeharka begiratzen zien bitartean. Karlos Linazasoro

-Zuzen hago: gu bezalako jendeak zintzo-zintzo betetzen ditu beti legearen **eskakizunak**. Jon Muñoz

Sortzen ari den gizarte berriaren **eskakizunei** erantzuten. Askoren artean

Sindikatuek lan ituneko **eskakizunei** uko egin zietela iragarri du enpresa zuzendaritzak. Berria - Ekonomia

Teherango gobernuak NBEren **eskakizunei** entzungor ez ezik, aurre ere egin die, IAEA Energia Atomikorako Nazioarteko Agentziaren arabera. Berria - Mundua

Gizakirik gehienak, esango du funtsean Spinozak, ez dira ezagutzaren **eskakizunei** bizkar emanik eta ezjakintasunean murgildurik egoten, baizik eta areago, orain arte **eskakizun** horri erantzun diotenek ere badirudi ez dutela gizakiaren gurariri sakonena den hori ase. Piarres Xarriton

Eskakizun guztiei aurre egingo diegu. Xabier Olarra

Saiatu naiz argitzen bere baitan -bere neurriak hartzeko eta bere **eskakizunak** zehazteko- nik erabili dudan deskribatzeko aukera bat, ondo ezagutu gabe berak ezartzen dituen betebeharrak eta bere baliabideak. Xabier Arregi

Pintura geroz eta harrapatuago aurkitu zen elkarren kontrako bi **eskakizunen** artean: gertaera guztia irudikatu beharra, alde batetik, gertaera hori ongi uler zedin, eta une bat baizik ez irudikatzea, bestetik, pertzepziozko antza zehazkiago gordetzeko. Josu Zabaleta

Hemen daukat adierazpen baten zirriborroa, gure **eskakizunen** araberakoa. Oskar Arana

Diru- eta finantza-eragozpen guztiz larrien aurrean, ekonomia-politikak nazioarteko konkurrentziaren **eskakizunen** mende geratu dira apurka-apurka. Koro Navarro

Proba bukatzean, ikusiko du ea bezeroaren **eskakizunetara** egokitzen den emaitza. Irene Aldasoro

Oharpena eta exijentzia, anaiek lehen garaietako bizimoduari zintzo jarrai diezaioten, garai berrien **eskakizunetara** egokiturik noski. Askoren artean

Giza sen onaren gainetik dago, eta arrazoiaren **eskakizunetatik** urrun. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eskakizun bakarra egin nion: erabakitzen zuena erabakitzen zuela, etxera diru-karga berriak ez ekartzeko modukoa izatea. Aingeru Epaltza

Lau **eskakizun** nagusi horieri beste batzu ere lotzen ahalko ziren. Herria

Hori da, une hauetan, gure **eskakizunik** irmoena. Berria - Ekonomia

Infernuetatik egin zuen Dantek ere bere **eskakizun** erradikala, poesia eta imajinazio iniziatikoa direla ezagupen ororen oinarri. Joseba Zulaika

Edozein fenomeno sozialen ikertzailearentzat obligazio etiko eta **eskakizun** metodiko baitezpadakoa da neutraltasun eta objektibitate absolutua. Joxe Azurmendi

Jada ez zuten **eskakizun** berezirik egiten, eta begirale lanak ere ez ziren inondik ere hasieran bezain zorrotzak. Karlos Linazasoro

Eskakizun teknikoei aurre egiteko moduan diseinaturik daude kapilarrak. Irene Aldasoro

Bilbao Basketek «ia ezinezkotzat» jo zuen ACBk luzatu dizkien **«eskakizun** ekonomiko zorrotzak» bete ahal izatea. Berria - Kirola

Gorputzarentzat zorro bat diseinatu beharrean gertatuz gero, ingeniaria berehala ohartuko litzateke bi **eskakizun** kontrajarriri erantzun beharko liekeela. Irene Aldasoro

Baina bazekien baita ere gobernu britainiarrak ez zuela amore emango bi **eskakizun** funtsezkoetan: Ulster-entzat independentziaren estatusa, eta Commonwealth barrutik Irlandak irtetea. Joseba Zulaika

Irakasleak idazlanaren laburpena eska diezazuke (**eskakizun** hori guztiz arrunta da aldizkarietan). Askoren artean

Gauzen ustezko predikatu transzendental hauek ez dira oro harrezko gauzen ezagutza ororen irizpide eta **eskakizun** logikoak baino. Ibon Uribarri

Erlijiosoentzako **eskakizun** bereziak. Askoren artean

Objektuak beren baitan nola diren, nola dagoen gauzen izaera printzipioen menpean eta honek adigai soilen bidez nola determinatua egon beharko lukeen jakitea ezinezkoa ez bada ere, oso **eskakizun** zentzugabea da bederen. Ibon Uribarri

Bihur hadi gor gorputz atalen **eskakizun** lizun lurtarrentzat, moteldu daitezen. Imanol Unzurrunzaga

Zientzia den aldetik **eskakizunik** hertsienen arabera dogmatikoa eta sistematikoa izan behar duen, eta beraz, eskolak egiten duen moduan gauzatu behar den Metafisika. Ibon Uribarri

Hizkuntzalaritzan halako **eskakizunak** beste edozein zientziatan baino zorrotzagoak dira. Isabel Arrigain

Plazaratuak diren funtsezko **eskakizuneri** buruz, Pariseren mementoko ihardespen bakarra mespretxua da. Herria

Ministeritzak errefusatu ditu Seaskaren baitezpadako **eskakizun** batzu. Herria

Sindikatuon ustez, patronalak ez ditu aintzat hartu egin zituzten gutxieneko **eskakizunak**. Berria - Ekonomia

Oinarrizko **eskakizunak**. Herria

Manamenduzko **eskakizuna** egiten digute zenbaitek, beren exigentzia gure aurrean ezarriz. Piarres Aintziart

Betetzea hitzeman zuen Ebanjelioa Anaia Txikien Erregela eta bizimoduaren pareko esapidea da (ik. Askoren artean

2 Er 1,1); txiki izatea, beraz, frantziskotar bokazioaren funtsezko **eskakizuna** da. Askoren artean

Musika industriako eragileen aspaldiko **eskakizuna** izan da BEZaren jaitsiera. Berria - Kultura

Hiru **eskakizun** oinarrizko izan dira beren ekintzen xede: Euskal Departamendua (galde hau aski onartua da hautetsi eta herritarren artean), euskara eta euskal presoen eskubideak. Txema Ramirez de la Piscina

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Europako Parlamentuko **Eskakizun** Batzordeak ere itxiera honen inguruko **eskakizun** bat egitea erabaki zuen. Berria - Harian

Haren hitzek, hasiera-hasieratik jadanik, salaketa kutsua izan zuten, salaketa eta **eskakizun** kutsua. Ander Irizar

Euskal politika alderdien interes partikularren mende dagoenean, bakoitza bere garaipenaren bila, unibertsal berriaren **eskakizun** oihartzuna entzun lezake batek Ahotsak taldeak kaleratu duen proposamenean: alderdikerien gainetik, norberaren militantzia ideologikoaren gainetik, konponbidearen helburu komun baten premia eta honen aldeko militantziaren lehentasuna aldarrikatzea. Joseba Zulaika

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ingeniari batek, diseinu-**eskakizun** normalak baino askoz zorrotzagoak beharko direla oharturik, egituraren zenbait alderdi kritiko sendotzeko ardura hartuko luke badaezpada ere, eta horixe da gorputzean gertatzen dena. Irene Aldasoro

Ariketa egiten denean ere berdintsu mantentzen da biriketako oxigeno kantitatea: arnasa sakonduz eta bizkortuz erantzuten zaio muskuluek egoera horretan duten oxigeno-**eskakizun** handiagoari. Irene Aldasoro

Hizkuntz **eskakizuna** "zero" profilera jaistea izan zen lehen neurria. Aingeru Epaltza

Zein izan diren langabezia tasen eta lan **eskakizunen** aldaketak, zein izan diren korporazioei eta unibertsitateari buruzko erabaki politikoak. Xabier Arregi

Gotzaindegiko zigilua zuen eta apostasia **eskakizuna** jaso zutela zioen. Berria - Harian

Babes-**eskakizunak** arazo larria zekarkien Prusiako agintariei, gaizkileak eta iheslari politikoak estraditatzeko legea sinatu berria baitzuten Errusiarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zazpi astez hura okupatu zuten, eta erreforma **eskakizunak** gauzatu arte handik mugitzeko asmorik ez zutela adierazi zuten. Berria - Mundua

Antolaketa-**eskakizunek** ez digute bestetarako aukerarik eman. Askoren artean

Lege horren aurrean ez du balio zuzenbide **eskakizunak** : "Zerbait indarraren bidez lor dezakeenak ez baititu inoiz lehenetsi arrazoi horiek". Askoren artean

Rubertentzat, horrenbestez, premia handiagokoak dira politika **eskakizunak** kultura **eskakizunak** baino. Markos Zapiain

Hazkundeak eta zabalkundeak premia berriak ekarri zituzten: antolamendu eta zehaztasun juridiko handiagoa, eraikuntza materialak, hezkuntza eta kultur **eskakizunak** , eta horrek guztiak dinamika berriak sortzen zituen, jatorrizko xumetasunetik eta marjinaltasunetik gero eta urrutiago zeudenak. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino hizkuntz eskakizun (3); **baten eskakizuna** (4); **bere hizkuntz eskakizuna** (7); **beste eskakizun** (4); **bi eskakizun** (7); **bigarren eskakizuna** (4); **bigarren hizkuntz eskakizuna** (17); **bigarren hizkuntza eskakizuna** (6); **dagokion hizkuntz eskakizuna** (10); **egindako eskakizuna** (3); **ere hizkuntz eskakizuna** (3); **eskakizun bat** (9); **eskakizun bati** (4); **eskakizun batzuk** (5); **eskakizun bera** (3); **eskakizun egin** (6); **eskakizun eta** (8); **eskakizun guztiak** (3); **eskakizun hau** (7); **eskakizun hori** (9); **eskakizun horiek** (4); **eskakizun horri** (3); **eskakizun maila** (3); **eskakizun nagusia** (4); **eta eskakizun** (9); **hainbat eskakizun** (5); **hiru eskakizun** (5); **hizkuntz eskakizun** (6); **hizkuntza eskakizun** (3)

eskakizuna bete (9); **eskakizuna bete ez** (3); **eskakizuna betetzen** (6); **eskakizuna da** (7); **eskakizuna egiaztatzea** (4); **eskakizuna egin** (8); **eskakizuna egiten** (3); **eskakizuna eta** (5); **eskakizuna ez** (13); **eskakizuna ez dutenek** (3); **eskakizuna ez lortzeagatik** (4); **eskakizuna izan** (5); **eskakizuna lortu** (6); **eskakizuna lortu ez** (4); **eskakizuna lortzeko** (9); **eskakizuna lortzeko derrigortasun** (6); **eskakizuna zen** (3)

euskara eskakizuna (5); **ezarria hizkuntz eskakizuna** (3); **guztiei hizkuntz eskakizuna** (3); **hirugarren hizkuntz eskakizuna** (3); **hizkuntz eskakizuna** (97); **hizkuntz eskakizuna bete** (6); **hizkuntz eskakizuna egiaztatzea** (3); **hizkuntz eskakizuna eta** (4); **hizkuntz eskakizuna ez** (9); **hizkuntz eskakizuna lortu** (5); **hizkuntz eskakizuna lortzeko** (8); **hizkuntza eskakizuna** (26); **langileak hizkuntz eskakizuna** (3); **lanpostuaren hizkuntz eskakizuna** (3); **lehenengo hizkuntza eskakizuna** (5); **zegokion hizkuntz eskakizuna** (3)

bere eskakizunak (10); **bere eskakizunen** (3); **beren eskakizunak** (5); **berriaren eskakizunak** (5); **dituzten eskakizunak** (3); **eskakizunak aintzat** (6); **eskakizunak aintzat ez** (3); **eskakizunak bete** (7); **eskakizunak betetzen** (3); **eskakizunak egin** (3); **eskakizunak ere** (4); **eskakizunak eta** (7); **eskakizunak ez** (3); **eskakizunak lortzeko** (3); **eskakizunak onartu** (4); **eskakizunei aurre** (3); **eskakizunei erantzun** (4); **eskakizunei erantzuten** (3); **eskakizunek ez** (4); **eskakizunekin bat** (3); **eskakizunen arabera** (4); **eskakizunen artean** (6); **eskakizunen berri** (3); **eskakizunen inguruan** (3); **eskakizunetako bat** (3); **eskakizunez gain** (3); **eskakizunik gabe** (3); **eta eskakizunak** (9); **eta eskakizunei** (3); **eta eskakizunen** (3); **euren eskakizunak** (6); **euren eskakizunen** (3); **gure eskakizunei** (3); **gutxieneko eskakizunak** (3); **hizkuntz eskakizunak** (34); **hizkuntz eskakizunak bete** (3); **hizkuntz eskakizunaren** (3); **hizkuntz eskakizunen** (8); **hizkuntz eskakizunik** (8); **hizkuntza eskakizunak** (7); **hizkuntza eskakizunik** (3); **langileen eskakizunak** (4); **langileen eskakizunei** (4); **oinarrizko eskakizunak** (6); **plataformaren eskakizunak** (3); **presoen eskakizunak** (3)

---

eskala 1 *iz* hurrenkera mailakatua, nolakotasun jakin baten graduen arabera egiten dena.

Mekanismo optiko horrek, bi irudi bateraraziz, objektuaren distantzia adierazten du **eskala** batean. Irene Aldasoro

Lurringileek 0tik 8rako **eskala** bat erabiltzen dute askotan. Irene Aldasoro

440 Hz dituen La bat baino **eskala** bat goragoko La notak 880 Hz izango ditu. Lourdes Oñederra

Ez da **eskala** hierarkiazko bat, zeinaren baitan punturik gorena gainerako guztien nagusi den, ezta ontzat eman beharreko osagarri gehitu huts bat ere. Piarres Xarriton

41eko kalentura markatzen duen termometroari **eskala** aldatu, eta 41aren ordez 38a jartzea. Iñaki Heras

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horrexegatik esaten zaio **eskala** absolutua gradu Kelvinei, beste eskalek ez bezala zeroan baitu muga. Fernando Morillo

K ikurrak tenperaturako **eskala** absolutua adierazten du (gradu Kelvin). Fernando Morillo

Horrela gertatzen da Leibnizek abian jarri eta Bonnet-ek egokiro sustatu zuen sorkarien **eskala** jarraituaren lege hain ezagunaren baieztapena edo ukapenarekin. Ibon Uribarri

Hots-uhinaren maiztasuna handitu ahala, hotsa garaiagoa irudituko zaigu **eskala** musikalean, maiztasuna jaitsi ahala, berriz, baxuagoa. Lourdes Oñederra

Delituen eta zigorren **eskala** unibertsal bat balego, tirania-eta askatasun-mailak neurtzeko modu frogagarri eta komun bat izango genuke. Juan Martin Elexpuru

Zenbat eta gorago egon gizartean, orduan eta balio handiagoa; **eskala** hierarkikoan gora egin beharra dago, arrakasta izan nahi ezkero bizitzan, eta abar. Jon Muñoz

Garai horretan eraikuntzarekin erlazionatutako profesionalei, hala **eskala** arkitektonikoan nola hirigintzaren nahiz lurralde-eraldakuntzaren eskalan [...]. Santiago Iruretagoiena

Herder-ek ez du progresoa ukatzen, baina progresoaren ideia ez dago zergatik esplikatu derrigor **eskala** linealetan, inperialistetan azken finean. Joxe Azurmendi

Aritmetika bitarra erabiltzen du konputagailuak, hau da, biko **eskala** bat; eskala horretan, bat eta zero dira digitu bakarrak. Irene Aldasoro

Hamarka zenbatuta, oinarrizko **eskala** bi eta bostekin bakarrik zati baitaiteke, eta bi, hiru eta laurekin zati daitekeen zenbakirik apalena, berriz, hamabia da. Iñaki Mendiguren

Mugimendua eta sekuentzialtasuna -eta, horrenbestez, denbora- funtsezkoak dira pertzibitzen den munduaren oinarrian dagoen espaziozko **eskala** hau eraikitzerakoan. Josu Zabaleta

Landareen azterketa sistematikoen kasuan hautemate eta hizkuntza kode zorrotza erabiltzen da **eskala** konstante baten arabera; deskribapen metodikorako kodeak nahikoa libreak dira eta kokapenerako **eskalek** oszila dezakete. Xabier Arregi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskala -desberdintasunak, S.B.ren kasuan bezala, ez zuen axola. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure gizartean egon daitezkeen gizon eta emakumezkoen arteko desberdintasun agerikoak (balio-**eskaletan** gerta daitezkeenak esate baterako) berezkoak dira ala egoeraren ondorioz sortu dira? Askoren artean

Muskulu ildaskatuak, berriz, esfortzu-**eskala** askoz zabalagoa du, eta abisatu egiten du gehiago ezin duenean. Irene Aldasoro

Garrasi-**eskala** osoa izan zen entzungai haren ostean. Mirentxu Larrañaga

Gizakien elkartasun-beharra kontuan hartuta, interes partikularren talkatik ezinbestean sortzen diren hitzarmenak kontuan hartuta, bidegabekeria-**eskala** bat sortzen da, eta horren lehen mailan daude gizartea berehala desegiten dutenak, eta azkenengoan gizarte horretako kide pribatuei egindako injustizia txiki-txikiak. Juan Martin Elexpuru

Tarifa [...]: Inportazioetako tasa-**eskala** , bertako ekoizlea kontsumitzailearen gutiziatik babesteko prestatua. Xabier Olarra

Ekoizpen-**eskala** handiago bati esker kostuak murritz daitezkeenez gero, eta, hortaz, mozkinak areagotu, enpresei ahal duten guztia egitea interesatzen zaie merkatuan duten partea handitu ahal izateko: Logaritmikoa da dezibel-**eskala** , hau da, 10 dB-ko aldaketari ozentasun hamar aldiz handiagoa dagokio; 20 dB-koari ehun aldiz handiagoa; 30 dB-koari mila aldiz handiagoa, eta abar. Koro Navarro

Kolore-**eskala** (beltza -gris mailak- zuria). Josu Zabaleta

Berez, ordea, koloreak ez baina argitasuna irudikatzen duten irudiak dira horiek, eta gris-**eskala** zabal bat erabiltzen dute. Josu Zabaleta

Pertzepzioaren helburua ikusmenezko munduaren ebaluazio-**eskala** bat ematea da nolabait Gibsonentzat. Josu Zabaleta

5 zerbaiten tamaina errealaren eta haren irudikapenaren tamainaren arteko erlazioa.

Presaka egindako planoak zirela nabaria zen: planoen **eskala** edo arkitektoaren izena ez zeuden bertan zehaztuta. Berria - Euskal Herria

Pare bakoitzean zati txikiagoak egiten dira, **eskala** txikiagoko mapak eginez horrela. Pello Salaburu

6 eskala musikala.

Eskala batzuk bizi-bizi, hatzen zurruntasuna kentzeko. Anjel Lertxundi

Eskala bizkor eta arpegio koloretsuen tirania kontrastetsuak. Anjel Lertxundi

Honenbestez, bi oktabako **eskala** kromatikoa osatu zuen. Koldo Izagirre

Bigungarri goxotan bildu oinek zeramaten melodia, eta hatzek, berriz, bariazio **eskala** bat jotzen zuten, hutsalki, nota-sail bakoitzaren ondoren. Irene Aldasoro

Baina balio izan zitzaigun Koczis jotzailearen digitazio apartaz gozatzeko gora eta beherako **eskaletan**, mordente, trino edo apoiaturen gardentasunaz harritzeko. Berria - Kultura

7 tamaina, magnitudea.

Hurrengo goizeko lehen argiarekin, oinarri zarpail eta arre hartan piperrautsaren edo alheñaren gorritasuna itsatsiko ziren, katilu eta plateren horitasuna, babutxa eta kaftanen urdintasuna; kolore horiek eta, beste **eskala** batean, alfonbra-dendan ikusi berri genituen guztiak. Bernardo Atxaga

Alde batetik arazoaldiak aurkitzen ditugu, proletalgo deserrotu eta arranguratsuak ez ezik, kolonizazio-enpresak ere **eskala** handian sortzen dituztenak. Iñaki Mendiguren

Toki zein nazio mailako administrazioei egokituko zaizkie, bakoitzari bere eskumenen barnean, ingurumenaren gainean zertzen diren **eskala** handiko jarduera gehienak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Izurria da GIB birusa, **eskala** txikikoa, baina etenik gabe aurrera doana, eta behar adinako jaramonik ez zaiola egiten salatu dute. Berria - Gaiak

Donostiako *Belle Époque* deritzonari esker, hiriak mende aldaketaren garaiko Parisen tankera hartu zuen, **eskala** txikian bada ere. Askoren artean

Diskurtso txiki bat da, nolabait, puntu bakoitza, bertsolariak **eskala** txikian jardun erretoriko guztia errepikatu behar izaten duen azpi-diskurtsoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Estatu unibertsal baten gobernu-egoitza benetan lur ona da espirituzko haziak erortzeko, horrelako hiri bat mundu zabalaren epitomea baita **eskala** txikian. Iñaki Mendiguren

Barbaroz betetako Kristandade Ortodoxoan kausa berak ondorio bera eragin zuen **eskala** txikiagoan, lirika herrikoi eta poesia epikoaren loratzean. Iñaki Mendiguren

Inperio horietako **eskala** zabaleko talde-lanaren antolamenduak erakusten duenez, zorrotz banatua zuten lana. Koro Navarro

Bestalde, G. Canguilhemek berak ere egiten duen zientzien historiaren **eskala** mikroskopikoen eta makroskopikoen arteko bereizketa dugu, haietan ez baitira modu berean banatzen gertaerak eta hauen ondorioak. Xabier Arregi

Unibertsoaren **eskala** nire aldera ekartzeko era bat zen bizikleta ibaira botatzea. Harkaitz Cano

Eskala -problema hutsa azken batean, alegia, Jackson Pollocki, bere garai oparoenean, miniatura akriliko bat egitea enkargatu baliote bezala. Patxi Iturritegi

Dena den, atzeman dezakegu etenik gabeko lurralde batean, jendaki sendetarioen artean garaturiko hizkuntzek eta dialektoek gertaera berak -hizkuntzek **eskala** handiagoan- ageriratzen dituztela. Isabel Arrigain

8 hegazkin edo itsasontzi bat abiapuntutik helburura bitartean gelditzen den lekua.

1926an, Okzitaniako Tolosatik Casablancarako lehen hegaldia egin ondoren, Casablanca-Dakar posta hegazkinen nahitaezko **eskala** zeten Juby-ko lurmuturreko aireportu buru aritu zen. Josu Zabaleta

Poztu nintzen galanki, **eskala** egin genuenean. Joxe Austin Arrieta

-Parisen **eskala** bat beharko nuke, erosketaren bat egiteko. Harkaitz Cano

Auto hondatu bat bide bazterreko zangara ateratzeko behar duten denbora [...] aski izan dugu guk **eskala** lekura iristeko. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

balio eskala (3); **bat eskala** (3); **beheranzko eskalan** (3); **da eskala** (3); **du eskala** (3); **eskala bat** (11); **eskala batean** (5); **eskala bizkor** (3); **eskala handiagoan** (3); **eskala handian** (8); **eskala handiko** (14); **eskala horretan** (5); **eskala txikian** (6); **eskala txikiko** (3); **eskalak eta** (4); **eskalan behera** (3); **eskalan eta** (3); **eskalan gora** (4); **eskalarik gabeko** (3); **eta eskala** (12); **eta eskalak** (3); **grisen eskalan** (3); **richter eskalako** (5); **richter eskalan** (20); **richterren eskalan** (4)

---

eskalada

1 *iz* gailur garaietara eskuez eta hankez baliatuz igotzea.

Hutsegitea ez zen gehiago ezbehar komiko samar bat, etsamina bat izorratzen edo nota jaisten dizuna: hutsegitea **eskaladan** zoazenean bezala zen, indarrak neurtze bat, kontura-jauste bat, maila bat gora, adoretsuago eta trebeago bilakatzen zaituena. Juan Garzia

Neguak ere **eskaladan** aritzeko baldintzak zailtzen ditu. Berria - Euskal Herria

Mendian ere ibili dira ikasleekin, Aspeko mendietan gaindi, eta ere **eskaladan** trebatzen Olorone aldean. Herria

Beti esan izan dut gailur batek ez duela halakorik merezi, baina esperientzia honek bai merezi izan du: taldeko lanak, K-2ko **eskaladan** izan ditugun sentsazioak, horrek denak merezi izan du. Berria - Kirola

Milanera aldatu nintzen ezinbestekotzat jotzen nituen gauza apurrekin: bizikleta, Rabelais, Macaronaeak, *Moby Dick* Pavesek itzulia eta beste liburu bakan batzuk, pikotxa, **eskaladarako** soka, logaritmo-erregela eta txirula bat. Juan Garzia

Aran haranean egon gara **eskalada** egiten. Berria - Harian

21 urterekin, **eskalada** utzi zuen, fisioterapeuta aritzeko. Berria - Kirola

Eskalada libreaz, noski, ez zuen ordu ezkero ezer jakin nahi izan. Iban Zaldua

Udan, bakarrik joaten zenean, berekin eramaten zuen sarritan txakurra, **eskalada** -lagun. Juan Garzia

Jende askok oraindik uste du kontsumoa **eskalada** prozesu bat dela; alkoholdun edariekin eta porroekin hasten dela, eta kokainarekin edo heroinarekin amaitzen dela, gizarte bazterkerian. Berria - Euskal Herria

Gure bizitzako urteak **eskalada** baten moduan aurkeztu dizkigute, ondasun materialen eta ekonomikoen bila etengabe gora eta gora jo beharreko igoketa baten moduan. Pako Aristi

Egia da barruko eskalatzaile askok, kirol-**eskaladan** aritzen direnek, ez dutela neguko **eskaladan** aritzeko behar adina formakuntzarik. Berria - Euskal Herria

2 irud/hed

Aste eta hilabete haietan gure Erakundeak zeraman **eskalada** jasanezina zitzaion Madrili. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskalada egiten (3)

---

eskaladakide

iz eslakadako laguna.

Jesukristoren maitasunezko sokari oratuta goaz, bai, baina gu ere **eskaladakide** eginda, guk ere maitatuz elkarri gorantz laguntzen, berarekin batera. Jenaro Garate

---

eskaladore

iz eskalatzailea.

Nik inbidiaz begiratzen diot Marcosi (ia gehienari begiratzen diot orain inbidiaz: Alexei Nemovi ere bai, eta **eskaladoreei**, edo eskaileretatik jausten diren umeei). Unai Elorriaga

Beharbada beste **eskaladore** bati gertatu zitzaion hori guztia, ez Messnerri. Unai Elorriaga

Eskudelari **eskaladore** -atzamarrez oratuta, gora egin zuen. Unai Elorriaga

---

eskalafoi

iz funtzionario edo kidekoen talde bateko banakoen zerrenda ofiziala, kategoriaren, antzinatasunaren edo merituen arabera antolatua.

Unibertsitateko **eskalafoian** gora samar daudenak izaten dira jeneralean epaile: irakasle titular eta katedratikoak, alegia, lanpostu finkoa eta soldata polita dutenak. Joxerra Garzia

Eskalafoian igotzeko aukerarik gabeko titular petral bat izatea, ordea, ez nuen hain atsegin; Arantxa askoz ere ibilbide profesional bizkorragoa egiten ari zela kontuan harturik, batez ere. Iban Zaldua

Beste neskato lagunen harrera ikusirik, puntu bat gehiago irabazia zuen orduantxe bertan Luziak nire edertasunaren **eskalafoian**. Joxemari Iturralde

---

eskalapoi *(orobat **eskalapoin**)* **1** *iz* zurezko atal bat hustuz egiten den oinetakoa, hainbat lurraldetako nekazariek-eta erabiltzen dutena.

Haren emazteak mantal luze bat, puntuzko jaka beltz bat eta **eskalapoi** batzuk janzten ditu. Josu Zabaleta

Zeren **eskalapoi** batzuetarik ez baitago txapinak ateratzerik. Joan Mari Irigoien

Arrantzaleentzako sare, **eskalapoi**, xira eta abarren salmentan. Txillardegi

Hara, **eskalapoietatik** txapinetara, eta oihal zakar merkezko gonetatik zetazko soineko harro finetara pasarazten baduzu, eta "hikazko Maritik, berorizko anderetara" ez du gauza onik egingo neskak. Patxi Ezkiaga

Ene **eskalapoinak** nekez kentzen ditut ene oin hormatuen berotzeko. Michel Oronoz

Patxadaz jaso ditu bere gauzak: poltsa, Discmana, berokia; **eskalapoiak** kendu, eta zapatak jantzi ditu. Iban Zaldua

Euskaldunak ez du gehiago **eskalapoinekin** eta burua-apal ibiltzerik, ez baserrian ez-eta hirian ere. Herria

Auzoko haurrak alkandora mehe batez jantzita, oinak **eskalapoietan** dituztela, berokirik gabe, txanorik gabe, galtzerdirik gabe ibiltzen dira kalean, eta ez dute nork lagundurik. Josu Zabaleta

Elur-zerrenda fin bat zuen Gabrielek, kapa bat baliz bezala, soingainekoaren sorbaldetan eta, oin-puntakoak balira bezala, **eskalapoien** behatzetan. Irene Aldasoro

Zorua batere bustia baldin badago, **eskalapoiak** jantzi behar izaten ditut. Irene Aldasoro

Eguberriz espartinekin, Pazkoz **eskalapoiakin**. Pello Zabala

-Zurezko **eskalapoiak** egiten dizkiot laborariari eta larruzko botak kapareari. Aingeru Epaltza

Trukean mokanes bat eskura, orratza, haria, egiazko **eskalapoin** pare bat alabaina, frantxixkano oinetakoek elurra biltzen dute barnera urrats guziez. Marzel Etxehandi

Elurretan beltz eta bustirik ageri zen Sergeik galdutako **eskalapoi** orporik gabea. Jose Morales

Balezta eta gomazko **eskalapoi**-parea zeuden aurreko atearen ondoan. Iñaki Mendiguren

Umeteria hasi da ataga arakatzen, doi-doi jotzen, hasieran zuhur, gero zakar, **eskalapoi**-kolpeka eta, itxaroteaz nazkatuta. Itziar Otegi

Airean pattar usaina zegoen eta **eskalapoin** hotsa heldu zen karriketatik. Berria - Kultura

2 *adkor* gai ez dena.

Zuen ama ez bezala, **eskalapoia** zara musikarako. Xabier Montoia

3 (izenondo gisa)

De Villepin lehen ministro berriaren neurri **eskalapoin** horiek, on ta tzarrak saltsa berean nahasirik. Herria

---

eskalapoikeria *(orobat **eskalapoinkeria**)* *iz* **

Hogei urte zituela, Miriam Wewer izenarekin, Israelera emigratu zuen eta, ez zen inoiz israeldar soldaduen **eskalapoikeriekin** ohitzera heldu. Pablo Sastre

Mari haren saihetsean zebilen, haurra besoetan zeramala, uhal batez estekaturik, **eskalapoikeria** baten ondorioz edo eror ez zedin. Elena Touyarou

Erran duena da ez duela nehori gaizkirik egin, nihondik ere ez dela legez kanpo jokatu, huts batzu egin baditu ere, **eskalapoinkeria** batzu edo holako zerbait izan direla. Herria

Iduri dute han gaindi ez direla sartu ere munduko berriak Irakian gaindi eginak dituzten **eskalapoinkeriez** eta hartzen dituzten ostikoez. Herria

---

eskalapoin ik **eskalapoi**.

---

eskalapoinkeria ik **eskalapoikeria**.

---

eskalapuntari *iz ipar***

-Egüberriz espartintari, Pazkoz **eskalapuntari**. Pello Zabala

---

eskalatu, eskala(tu), eskalatzen **1** du *ad* gailur garaietara batez ere eskuez eta hankez baliatuz igo.

Iltzeak, sokak, mosketoiak, estriboak... Yosemiteko Great Captain **eskalatzeko** adina tresneria zegoen han. Aingeru Epaltza

Eskalatzeko hautatu zuten harkaitza biziki zaila eta lanjerosa zela gehitu zuten jendarmerikoek. Berria - Kultura

Kantabriako 27 urteko mutil bat hil da Atxarteko harrobian, **eskalatzen** ari zela erorita. Berria - Euskal Herria

Ehiztari eta arrantzale franko dago, baina Bennettek nahiago izaten du basoan oinez ibili, **eskalatu** edo mendian zehar eskiatu. Xabier Olarra

Hainbat atzamar moztu zizkioten Annapurnatik bueltan eta, klaro, nekez **eskalatuko** zuen berriz. Unai Elorriaga

Malkardura **eskalatuz** inguratu dut arroka. Koldo Izagirre

Hemen ere esku-belaunez **eskalatu** behar izan dut. Koldo Izagirre

Ertzik gabeko metal xafla dirudi **eskalatu** beharrekoak, hain da zenbaitetan zaila. Xabier Montoia

Hilean behin desestresatzera mendira, naturara edo **eskalatzera** doazen pastillero bukolikoak. Pako Aristi

Eskalatzeko soka berriak. Unai Elorriaga

2 irud/hed

Hantxe ikusi genuen sarrerako film laburra: Harald Lloyd, fatxadetan gora **eskalatzen**, hogeiko hamarkadako modaren arabera. Joxe Austin Arrieta

Gauerdiko ordu berandu hartan Padre Solanak bere talaia utzia izango zuela uste genuen, baina Ikastetxeko harresia **eskalatzen** hasi ginenean amaraunean erorita geundela ohartu ginen. Joseba Sarrionandia

1984an, **eskalatzen** hasi zen berriz: 7b zailtasuna duen bide bat igo zuen. Berria - Kirola

Txikitan armairuetan gora **eskalatzen** zuela gogoratu zuen orduan. Unai Elorriaga

Nik ere lurrera jaitsi nituen begiak eta debozio handiz, pausatuki, joan nintzaion zangoak **eskalatzen**, orkatilaren borobiltasuna lehenik eta izter-mamiak gero miretsiz. Joxean Agirre

Harresietan nago fosoa **eskalatu** ondoren. Koldo Izagirre

Orkoen galeriako harrizko atera itzuli zen azkenik eta, oraingoan ere, hura trangatzen zuen mekanismoa edo morroiloa aurkitu ezinik, lehen aldian bezala **eskalatu** eta beste aldera salto egin zuen. Agustin Otsoa

Aspalditik erabili gabeko sastraken arteko bidexidor zahar batek igo baino gehiago **eskalatu** egiten zuen dozenaka metrotan, leize-zuloaren aurreko plataforma txiki

bateraino. Joanes Urkixo

---

eskalatxo *iz* eskala txikia.

Auzune batzuetan, tamaina ezberdinetako txilibitu mordoxka bat elkarri lotuta ipini, eta halamoduzko **eskalatxoa** osatzen zuten. Pello Zabala

---

eskalatzaile 1 *iz* eskaladan aritzen den pertsona.

Euskal Herriko mendizale, **eskalatzaile** eta alpinisteri, bai-eta orokorkiago mendia maite duten guzieri eskainia da. Herria

Dino Buzzati, puntako idazle izateaz gainera **eskalatzailea** baitzen, harritzarraren erpinean ageri da egunkari batek baino gehiagok eman duen 1940 urte inguruko argazki batean. Anjel Lertxundi

Getxoko **eskalatzaile** bat hil da Benasquen, Creta de Salenques eskalatzen ari zela. Berria - Euskal Herria

Goierriko **eskalatzaileak** esku-eskura izan du 9a zailtasuneko Flat Mountain bidea kateatzea. Berria - Kirola

Egia da neguko **eskalatzaile** on ugari dagoela, eta rokodromoetako boom-ari esker gero eta **eskalatzaile** hobeak daudela. Berria - Euskal Herria

Messner bezalako **eskalatzaile** ospetsu handiek zein gu bezalako gizajo ezezagunek, edo sekula itzuli ez zirenek. Xabier Montoia

Artezi batek arrakalatzen du oinarritik gailurreraino, gora egin ahala gero eta meharragoa artezia, azkenean **eskalatzailea** haitz-hormara irtetera behartzeraino. Juan Garzia

Josune Bereziartu lazkaotar **eskalatzaileak** eskuratu du 2002ko Gipuzkoako kirolari hoberenaren saria. Herria

Alemaniako bi **eskalatzaile** hil ziren atzo, Aconcagua mendiko iparraldeko aurpegiko glaziar batetik igotzen ari zirela. Berria - Kirola

2 (izenondo gisa)

Josune Bereziartu munduko emazte **eskalatzaile** hoberena. Herria

3 *irud/hed (gutxiesgarria)*

Nik ezarri izengoitia aise hedatu zen lantokian: **"Eskalatzailea"**. Aingeru Epaltza

Eskalatzaileak soilik zuzendariarekin eta enpresako kontseilari-delegatuarekin erabiltzeko irribarrea zuen. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskalatzaile bat** (5); **eskalatzaile eta** (4); **eskalatzaile goierritarrak** (3) e skalatzailea bere (3); **eskalatzailea da** (4)

---

eskalatze *iz* gailur garaietara batez ere eskuez eta hankez baliatuz igotzea.

L. eskalatzailea bost metroko altueratik erori zen eta bizkarrean min hartu zuen atzo, Lezeko **eskalatze** eskolan (Asparrena, Araba). Berria - Euskal Herria

---

eskale 1 *iz* adierazten dena eskatzen duen pertsona.

Preso abertzaleek epaileari men ez egiteak aztoratzen ditu su-eten **eskale** horiek, eta ez du ematen isolamenduetan dauden presoen egoerak edo komisaldegietan atxilo edukitzen dituztenen larriak asko arduratzen dituenik. Jokin Urain

Da oraino bertzelako gizarte baten **eskale** suharra. Herria

· Ihauteria-kari etxez etxe **eskale** zabiltzanek kantatzen ohi zuten "ez zabiltzala ederrez ez eta ere beharrez bainan usaia xaharraren ustez erreprotxu beldurrez! Herria

2 eskean bildutakotik bizi den pertsona. ik **eskeko**.

Bazen Lazaro izeneko **eskale** bat ere, haren ate ondoan egoten zena. Elizen arteko biblia

Pobreak eta **eskaleak** ziren, baina jendetasun apurraren jabeak ere bai. Itxaro Borda

Herri xehea makilaka urrundu behar izaten delako, edo arlote, **eskale** eta pikaroei egurra ematen zaielako, ez da pentsatu behar Txinan ez dela elkar babesteko legerik, eta legeok ederto gobernatzeko bidea ematen ez dutenik. Juan Martin Elexpuru

Armada okupatzaile berez handiak are segizio handiagoa ekarri zuen berekin: **eskaleak**, gaiztaginak, iruzurtiak, pailardak, putazainak, bilaketariak, kausitzaileak eta mota guztietako harrapariak. Aingeru Epaltza

Eskekoak ziren munduan gehien maite zituen pertsonak, Lurra bete **eskale** desio zuen. Patxi Zubizarreta

Europako hiribururen bat aukeratu ohi zuen, Paris gehienetan, eta han bertako *clochard* eta **eskaleekin** nahastea gustatzen zitzaion. Joxean Agirre

Anaiei esaten die "poz hartu behar dutela, jende baxu eta mespretxatuarekin, behartsu, ahul, gaixo, legendun eta bide-bazterretako **eskaleekin** batera bizi izateaz". Askoren artean

Gau hura geltoki aldean, **eskaleen** kartoizko aterpe ahuletan pasatu zuen. Itxaro Borda

Zergatik aukeratu duk **eskaleen** ogibidea? Patxi Zubizarreta

Jaunak pobretasuna du gogoko, eta batez ere beren borondatez **eskale** bihurtzen direnen pobretasuna. Askoren artean

Ipuineko **eskaleak** printzea gordetzen duen bezala. Bernardo Atxaga

Eskalez jantzirik sartu omen zen Troian, eta Helenari jakinarazi omen zizkion greziarren asmoak. Juan Kruz Igerabide

Gero hartu astoa eta etorri etxera, bidean aurkitzen duzun lehendabiziko **eskaleari** limosna emanez. Pako Aristi

Ezertxo ere ez dutenek, **eskaleek**-eta, haur asko izaten dituzte. Iñaki Iñurrieta

· Bat-batean ohartu nintzen ene parean, baina karrikaren bestaldean, bazela eliza xahar bat eta haren atean emazte gazte bat **eskale**. Janbattitt Dirassar

Aberats aspertu bat kalera irten da **eskale** jantzita, berarekin ondo portatzen den lehendabizikoari milioi bat lira emateko asmoarekin. Anjel Lertxundi

Isengard suntsiturik zagok, eta zuen nagusi miretsia **eskale** zabilek lurralde basatietako bideetan. Agustin Otsoa

Zikin eta zarpail, **eskale** nabilelako? Juan Kruz Igerabide

Ibil bitez haren haurrak harat-honat **eskale**, beren etxeak konfiskatu dizkietelarik. Elizen arteko biblia

Eskaletzat jotzen dituzte. "Zergatik ez duzue lan egiten?" oihu egiten diete. Gotzon Garate

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Eraman ezazu **eskale** gizajo hau, hirian eskean ibil dadin. Juan Kruz Igerabide

Ni zerrizainarekin joango nauk, **eskale** zahar baten itxuran. Juan Kruz Igerabide

Hago hortxe, nire mahaitik urrun, segituan Egiptora edo Txiprera bidaltzea nahi ez baduk, **eskale** lotsagabe hori! Juan Kruz Igerabide

Nora daramak, zerrizain miserablea, beste **eskale** nazkagarri hori? Juan Kruz Igerabide

Denak barreka hasi ziren, eta **eskale** zarpailen inguruan bildu ziren. Juan Kruz Igerabide

Gurasoak **eskale** profesionalak nituen. Patxi Zubizarreta

Eskaleak gezurtiak izaten dituk, jateko zerbait ateratzearren. Juan Kruz Igerabide

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baionako Besten karietara Paristik etorri **eskale**-taldea karriketan eske zeuden etxekoei eldarnioka hasi zitzaien. Itxaro Borda

Goiargiak joa sentitu zen Misiako errege Telefo hantxe agertu zenean, **eskale**-zarpaz jantzirik eta saski bat eskuan. Juan Garzia

Heroi itxura duten eskaleak, **eskale** itxura duten heroiak. Koldo Izagirre

Ulises Itakara itzultzen da, eta bere lurretako zerrizainarekin bizitzen jartzen da, **eskale** itxuran. Juan Kruz Igerabide

Urte askoan zirku ibiltari batean lan egina, haur denboratik sarritan egona zen **eskale** jendearekin. Patxi Zubizarreta

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haren plazerrik handiena anaiekin irtetea zen, haiek ogi **eskale** zihoazenean atez ate. Juan Garzia

6 (izenondo gisa)

Parisen eman zuen boladan ikaragarri gozatu zuen itsu-makila hartuta metroan, bagoiz bagoi, itsu **eskalearena** eginez. Harkaitz Cano

Karmel Mendiko ordenako fraide **eskalea**. Xabier Olarra

Bere galtzetako poltsiko handietan zeuzkan errubloei diru hotsa eragiten zien, monje **eskaleek** katiluko txanponei bezala. Matías Múgica

Nire lagun **eskaleek** inolaz ere ez zuten harrapatuak izan nahi. Joxan Elosegi

Castro della Pieve herrixkan gazte **eskale** bat bizi zen, jaiotzatik gor-mutua zena. Askoren artean

Kilometro amaigabeak egin ditut horrela, eta zuritasunez inguratutako tarte neketsu horretan Tabrizko andre **eskalearen** irudi beltza etorri zait gogora behin baino gehiagotan, iragarpen gaizto baten antzera. Jon Arretxe

Herrian sartzen nintzela, atso **eskale** serios batek, ehun urtekoa bai, pareta baten bazterretik zutitu eta erremusina eskatu zidan babes-keinu ikusgarri batekin. Berria - Euskal Herria

Kristo haren Semeak, bekatarien alde erregutuz, hitzeman zuen bere bizitza eta nekaldia gizon batengan, hau da, Frantzisko pobretxo **eskaleagan**, berrituko zuela. Askoren artean

7 ***eskale-belar*** sendagintzan erabiltzen den landarea, bi urte baino gehiago iruten duena.

Gaztainondoarenek txistu hotsa atera dute, eta **eskale**-belar gorakariak palastaka ari dira, murruan barna elkar joka. Itziar Otegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atso eskale serios (3); **baina eskalea** (3); **beste eskale** (3); **bi eskale** (5); **eskale bat** (28); **eskale batek** (4); **eskale baten** (9); **eskale bati** (7); **eskale eta** (7); **eskale gisa** (5); **eskale itxura** (6); **eskale itxuran** (4); **eskale serios batek** (3); **eskaleak ere** (4); **eskaleak eta** (3); **eskaleen artean** (4); **eta eskale** (17); **eta eskaleak** (7); **ez ziren eskaleak** (3); **ogi eskale** (3); **zen eskale** (3); **zen eskalea** (3); **ziren eskaleak** (3); **zuen eskale** (7); **zuen eskalea** (4)

---

eskaleno **1** *izond* triangeluez mintzatuz, hiru aldeak desberdinak dituena.

Hiru aldeak desberdinak dituzten triangeluei **eskalenoak** esaten zitzaien: herrenak. Jon Muñoz

Ondo gauza herrena izango genuke, erabat **eskalenoa**! Jon Muñoz

2 irud/hed

Eskalenoa zuen kontabilitatea! Jon Muñoz

---

eskalera ik **eskailera**.

---

eskalerka

Gure baratzeen heineko landa batzu eta gehiago dena **eskalerka** dituzte lantzen eta zer artarekin. Herria

---

eskaleta *iz*

Itaunketaren **eskaleta** kontsultatzeari ekin dio isildu beharra bestelakotzeko. Koldo Izagirre

---

eskaletxo *iz adkor* eskale xumea.

San Frantziskok, itxura eskasekoa eta txikia zenez, eta ezagutzen ez zuenak **eskaletxo** ziztrintzat hartzen zuenez, ez zuen bildu ogi lehor hondar batzuk eta pusketatxo batzuk besterik. Askoren artean

---

eskaletza *iz* eskalearen bizibidea; eskale izatea.

Eskaletza desagerrarazteko neurriak hartu behar direla entzuten dut alde guztietan, eta bitartean haiek ugaltzeko ahal den guztia egiten da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neguko lehorte eta erreak eskarmentu txarra uzten zuen normalean, **eskaletzan**, esku-zaku eta guzti ibili beharrerainoko eskarmentua juxtu. Pello Zabala

Hala errebelatu zitzaion Dolcinori **eskaletzaren** miraria. Juan Garzia

Maiteko ahal hau Zeusek nik adina, **eskaletzatik** atera bainauk. Juan Kruz Igerabide

---

eskalextri *iz adkor* miniatura autoen jolas pista bihurgunetsua.

Eskalextria zure gerriaren bihurguneak tentatzeko. Jasone Osoro

---

eskalinata *iz* harmailadia.

Oso astiro, zintzurra lehor, oinak erreta dituena bezala, erdi herrestan iritsi nintzen etxeko **eskalinata** leinurutsuaren aurrera. Matías Múgica

Ezkaratzean, hondar koloreko librea horiz jantzitako bi lekaio, hedeak eta botoiak zilar huts, beren sillatik jaiki ziren, magiaz bezala zutitu alegia, **eskalinata** arrandiosoen aurrean batzuetan ikusten diren harrizko lehoiak bezala. Matías Múgica

---

eskalon *iz ipar* eskala.

Benglades herrian lur-ikarak ainitz beldur eta kalte andana bat ere ekarri du 5 eko indarra baitzuen Richter en **eskalonean** herenegun goizean. Herria

---

eskalope *iz* haragi xerra mehea, eskuarki ogitan pasatua.

Jimmy, uste al duzu egokia dela **eskalopea** jatea gosaritarako? Lopez de Arana

---

eskalpelo *iz* gailu kirurgikoa, aho biko xafla mehe eta puntaduneko ganibet txiki baten itxura duena.

Mundu osoko jakintsuak, filosofoak eta borreroak beraren ziegan elkartuko balira eta, aurrean liburuak, **eskalpeloak**, aizkorak eta urka-bilurrak jarrita, frogatu nahi izango baliote heriotza existitzen dela. Jose Morales

Ikasle gehienak irrikatan zeuden disekzio-salara iritsi eta **eskalpeloa** gorpuetan sartzeko, ankerkeria primitibozko hondar atabiko bat geratuko balitzaie bezala. Josu Zabaleta

Horrelako bitxikeriaren batzuk kontatu zituen -beste bat aipatzeko, hantxe bertan auzitegi-medikuari erabili zuen **eskalpeloa** erosteko eskaintza egin ziotela-. Ramon Saizarbitoria

---

eskandal ik **eskandalu**.

---

eskandalagarri *(orobat **eskandalugarri** g.er.) izond* **1** eskandalizatzen duena, eskandalua sortzen duena. ik **eskandaloso**.

Nire aitaren lagun mina da; jenio gorena; poeta **eskandalagarria** eta inor baino hobea bere generoan. Anjel Lertxundi

Ingalaterra protestantean behinola gurtua zen aita santua orain Erromako apezpiku **eskandalagarria** besterik ez zen. Iñaki Mendiguren

Oroitzen zuen, bai, Morrison, irakurri zuen zerbait, amerikar **eskandalagarri** hari buruz. Harkaitz Cano

Zazpi gauetan iraun eragin zuten ikusleek ustezko ikuskizun **eskandalagarria**. Josu Landa

Orduan isun jakinarazpen bat jarri zion gure aitari, debekatuta zegoelako hark egin zuena egitea, jendeari ziria sartu nahi izatea bulegoan gauza **eskandalagarriak** saltzeko. Pello Lizarralde

Ez oso idazle arrunta, beraz, Nodier hau, gaur bertan ere nekez burutuko litzatekeena, arazoak ekarriko lizkiokeena idazle elkarte bati baino gehiagori; baina ez errebelde itsu eta fanatikoa, baizik eta lasaia, umoretsua, argia, bere joera **eskandalagarria** ondo baino hobeto defendatzen zekiena bere bibliotekari erudizioaz. Bernardo Atxaga

Ortega-k konparazio harrigarri -**eskandalagarri**?- bat erabiltzen du bere tesia psikologia pertsonalaren maneran argitzeko: "xxxx". Joxe Azurmendi

Herri xehearentzat, Vargasena zinismo hutsa zen, zinismo **eskandalagarria**. Jon Alonso

Kearney andreak esan zuen tratu **eskandalagarria** eman ziola batzordeak. Irene Aldasoro

Pintoreak beti biluzik pintatzen zuen andrea, eta gero saldu egiten zituen andrea larrugorritan zegoen koadro **eskandalagarri** horiek. Pello Lizarralde

Giro bikain honetan, apezen askatasunak ez dauka deus **eskandalagarritik**. Koldo Izagirre

O'Madden Burke jaunak esan zuen inoiz begien aurrean ikusi zuen ikuskizunik **eskandalagarriena** izan zela hura. Irene Aldasoro

Herritar guztiek, politikariek barne, **eskandalagarritzat** jo zituzten torturak. Berria - Harian

2 (izan aditzarekin)

Inolaz ere ezin nuen ulertu mutilaren nahia ez aski izatea auzia bertan ebazteko: ez zitzaidan buruan kabitzen, **eskandalagarria** zen. Juan Garzia

Gerra Zibilean nazioarteko faxisten esku hartzea **eskandalagarria** da. Edorta Jimenez

Eskandalagarria da Frantziako agintariek ihesa eragozteko neurririk hartu ez izana. Berria - Mundua

Istorio lotsagarria eta **eskandalagarria** zen, gure aita asaldatu hark inondik ere ulertu nahi ez zuena. Pello Lizarralde

Barbarossak Veronika Lakeri ematen zizkion besarkadak **eskandalagarri** samarrak ziren begira geunden guztiontzat. Pello Lizarralde

Emazteak soldadoz beztiturik ikustea **eskandalagarria** zaie batzuri. Herria

Beste muturrean, berriz, desberdintasun biologikoa **eskandalagarri** zaie, gizarte-ordenarekin ados ez, eta jende guztia berdin-peto nahi luketenei. Juan Garzia

AHTren kostua «**eskandalagarria**» dela salatu du Aralarrek. Berria - Euskal Herria

Hori izugarria, **eskandalagarria** da. Berria - Euskal Herria

Peter Hainek, berriz, atzo esan zuen torturak «nazkagarriak, **eskandalagarriak** eta onartezinak» eta AEBek gidatutako koaliziorako «orbana» direla. Berria - Mundua

Fusilamendu klandestino haiek baino ia **eskandalagarriagoa** zen berarendako hildakoek basamortuan ehortziak irautea hogeita hiru urte geroago. Koldo Izagirre

Eskandalagarriena zera da: frogaturik geratu izana hain gauza erraza dela bizitzaren erro-erroan dagoen gaia maneatzea. Juan Garzia

Esapiderik loretsuenekin apaindu behar dira madarikazioak; ahalik eta **eskandalagarrienak** izan behar dute; izan ere, hain da eztia eskandalizatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 (adizlagun gisa)

Eskandalagarri hornitutako arra eskaintzen da erronka handietarako. Juan Martin Elexpuru

Baita galera bikoitz horrek norberaren txoko batean lehen bezain erremediaezin eta **eskandalagarri** irauten badu ere. Joxan Elosegi

Emaztea eta bien artean berealdiko iskanbilak pizten ziren eta denen aho mihitan zebilen, **eskandalagarri**, batik bat. Buxi doktorearen eta Um Hamidaren ahotan. Patxi Zubizarreta

Gizon zaharra zen sasoi hartan, bizar-zuria, eta lumadun ginbail bat zeraman, zenbait pertsona zorrotzen **eskandalagarri**. Juan Garzia

Gaitz tanta batek zalantzaz zikintzen du sustantzia jator guztia, bere **eskandalagarri**. Juan Garzia

• **4** (izen gisa)

Eskandalagarri sinpatiko hori, entzun dut zerbait, bai. Harkaitz Cano

5 burrunbatsua.

Anaiaren burrunba ez zen pianoarena bezain **eskandalagarria** izan. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskandalagarria da (11); **eskandalagarria dela** (5); **eskandalagarria eta** (4); **eskandalagarria iritzi** (3); **eskandalagarria zen** (3); **eta eskandalagarria** (4)

---

eskandalagarriro *adlag* era eskandalagarrian.

Honen bidez Mendebaldeko herrialde bat -non boterea, aberastasuna eta aukera guztiak, gogora zitekeen denboran, higuingarriro txiki eta **eskandalagarriro** pribilegiatua zen gutxiengo batentzat gordeak baitziren- eraldatu egin zen. Iñaki Mendiguren

---

eskandalatsu *izond* eskandalosoa.

Kaseta haundi hortan bazituen Irakeko presondegietako argazki **eskandalatsu** batzu agertuak, Irakiako torturen gai hortaz, berria egia zabaltzen zutenak bainan erakusteko moldean jukutria bat sartuz. Herria

---

eskandalizagarri *izond* eskandalizatzen duena.

Egoera **eskandalizagarriak**. Elizen arteko biblia

---

eskandalizatu, eskandaliza(tu), eskandalizatzen **1** du *ad* eskandalua sortu.

Esaldi hark herria **eskandalizatu** zuen. Koro Navarro

Ez dut inor **eskandalizatu** nahi, baina, gezurra badirudi ere, gure planeta hau larrutero birtualez eta Xerezade anorgasmikoz beteta dago. Patxi Iturritegi

Txikitako borrokak gogoratu nituen orduan, ama **eskandalizatzen** zuten borrokak. Mikel Hernandez Abaitua

Azkenean beti nahi izan zuena lortu zuen bere obrekin: probokatzea eta **eskandalizatzea**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bakezale bazarete, klerikoak eta herria, biak irabaziko dituzue Jaunarentzat; eta hau onargarriago zaio Jaunari klerikoak **eskandalizatzea** eta herria bakarrik irabaztea baino. Askoren artean

Ez zuen, alabaina, Tuzidides baten tenpleko athenaitarrik **eskandalizatu** izango, oraindarrok agian espanta gintezkeen moduan. Joxe Azurmendi

2 da *ad* eskandalua jasan.

Izugarri asaldatu eta **eskandalizatu** zen. Askoren artean

Patetikoa iruditzen zaidana da Kataluniako gizartea **eskandalizatu** izana ETAk Katalunian su-etena deklaratu zuelako. Berria - Euskal Herria

Caravaggioren margolan zentsuratu horri buruz ari dela, hala dio Gombrichek, margolariak koadroa entregatu zuenean jendea **eskandalizatu** egin zela, santuaganako oso begirune gutxikoa iruditu zitzaiola. Bernardo Atxaga

Zesarreneko Pilar **eskandalizatuta** zegoen eliza barruan izan zelako, noraino ailegatu behar dugu eta horrelakoak esaten. Josu Landa

Bidean kantari ni, Morgan **eskandalizatuta**. Joxean Sagaztizabal

-Aitaren aulkian, John? -egin zuen oihu Wendyk, **eskandalizatuta** -. Julen Gabiria

"Ez duzu maite Ama Birjina!", egin zuen oihu maistrak, **eskandalizaturik**. Fernando Rey

Orain hasiak dira Birjina horien garbitzen, zuritasuna agerian utziz, Irungo Junkalgoko Ama Birjinaren gisa... kristau frango **eskandalizaturik** utzirik! Herria

Eta, **eskandalizaturik** nengoen alde batetik, baina baita gogara ere bertzetik, gero eta gogarago. Joan Mari Irigoien

Estatubatuarrek Abu Ghraib espetxean eginikoak ikustean Tony Blair «**eskandalizatu**» dela esan du Londresek. Berria - Mundua

3 (era burutua izenondo gisa)

-Hogeita zazpi xuxen errateko -zehaztu zuen Marik, adiskidearen doinu **eskandalizatuarengatik** irriz. Elena Touyarou

Bat-batean emakumeak, ameslari, irribarre harro eta pittin bat **eskandalizatua** ezpainetan, ahotsa arrastatuz esan du: [...]. Monika Etxebarria

Ez dut **eskandalizatuarena** egin nahi, zientzia ez dela politizatu behar eta gisa horretako adierazpen ingenuoak eginez, ez baitut uste politikaz aparte utz daitekeenik hura. Berria - Gaiak

Nora begira egon dira 12 urteotan orain hain **eskandalizatuak** dauden Miren Azkarate eta Txema Urkijo? Berria - Euskal Herria

---

eskandalo ik **eskandalu**.

---

eskandaloso *izond* eskandaloa sortzen duena, eskandaluzkoa, eskandalagarria.

Igelak Matiasek baino susto handiagoa hartu zuen (oso sentiberak dira igelak) eta, abilidade **eskandalosoz**, balkoiko leihotik egin zuen ihes. Unai Elorriaga

Gaurko gobernuaren ekintza **eskandalosoenetako** bat. Anton Garikano

Eta modu **eskandalosoan** saldu zituzten koadro desagradableak aitaginarrebak eta errainak. Unai Elorriaga

Esan nahi da John Lennon eta Henrik Wergelanden antza **eskandalosoa** zela. Unai Elorriaga

Frantziskok [...] anaiei eskaintzen dien ebanjeliozko askatasunak -bitxia garai hartan eta **eskandalosoa** ere bai- ederki agertzen du Frantziskoren aukera Ebanjelioaren alde, beste edonolako gisa usadio edo legeen gainetik. Askoren artean

---

eskandalu *(orobat **eskandalo** g.er. eta **eskandal** g.er.)* **1** *iz* jendartean zirrara edo gaitzidura handia eragiten duen egitatea, eskuarki immorala edo gizarte konbentzioen kontrakoa.

Gure amak autoa gidatzen zuen, galtzak janzten, zigarretak erretzen, nik ezaguera dudanetik; eta laguntzarik gabe joaten zen sendagilearengana eta laguntzarik gabe zinemara, hura **eskandalua**. Karlos Zabala

Balco laborategiko **eskandalua** 2003. urtean ezagutu zen, Kaliforniako laborategiko zuzendaritza kontseiluko 35 kideak dopin sustantziak ekoitzi eta banatzeagatik auzipetu zituztenean. Berria - Kirola

Jasanezinak zitzaizkion etxean sortzen ziren **eskandaluak**, liskarrak eta ika-mikak. Patxi Zubizarreta

Agian irakurleak gogoan izango du homosexualak ematen omen duten apaizen eta apaizgaien argazkiekin 2004an egin zuen egutegiak eragindako **eskandalua**. Anjel Lertxundi

Kanporatuz gero, besteekiko gure harremanak kolokan jar ditzaketen gure baitako egiek osa lezakete gure intimotasuna, baina **eskandaluak**, indiskrezioa eta exhibizionismoa, intimotasunaren alderdi zaratatsuenak hain indarrean dauden gizarte honetan, zer dago intimoagorik isiltasuna baino? Joxean Agirre

Nabarmenkeriak eta **eskandaluak**, Byronen bizitzari ez ezik, haren olerkien harrerari ere eragin zioten. Oskar Arana

Ez txundidurarik ez **eskandalurik**, apika; apika, harridura apur bat, hutsaren hurrengoa. Juan Garzia

Oso ondo daki [Sadek] **eskandalua** arma indartsua dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez ote dakizu gure familiaren **eskandalua** denen aho mihitan dabilela? Patxi Zubizarreta

Baketsu eta otzan ziren guztiekin; garbi eta baketsu ziren jokabide guztietan, **eskandalu** oro arretaz baztertuz. Askoren artean

Handik gutxira, Ordena gutxietsi eta kanpora joan zen anaiari **eskandalua** eman ziona. Berria - Kirola

Euskal irakurleak, bederen, aspaldi ez du **eskandalurik** hartzen bere eskuetara ailegatzean gatazka erraten dugun gure kontu triste horren inguruko literatur lanak, diren gogorrenak ere. Aingeru Epaltza

Bihozgabea da bere izen onaz axolarik ez duena; zeren eta ene desohoreak, ni hain ezaguna naizen aldetik, **eskandalua** ekar liezaioke zernahi jenderi, ez baita berdin sinetsiko, alabaina, horrelako Errege handi eta bihotz onekoa hainbeste haserretu dela enekin, non ez dudan zerbait huts larri egin. Piarres Xarriton

Denok dakigu Bileran ez dutela begiralea lanetik bota beste neurririk hartuko, **eskandalua** saiheste aldera. Anjel Lertxundi

Delako predikariak hainbateko **eskandalua** pizten ari ziren Nafarroa Behere guztian. Aingeru Epaltza

Europako hiriburuetako baten erdi-erdian izen eta tradizio handiko bitxi denda bat erosi zuen MacDonald's-ek, eta hura **eskandalu** bihurtu zen batzuen ustez, nahiz sinbolikoki ederki erakusten zuen noraino zen egia globalizazioaren kontu hau guztia. Pello Salaburu

Andrescuk lotura zuzenak zituen Ceaucescu presidentearekin eta, ondorioz, poliziak **eskandalu** guztia estali zuen. Iban Zaldua

Kaltea minimizatu, **eskandalua** atertu arte itxaron. Oskar Arana

Badut susmoa **eskandalua** saihesteko hura bezain zuhur jokatuko ez nuelako beldurrak ez ote zion deabruzko jukutria hura baliarazi. Jon Muñoz

Bidean zaharrenak **eskandalu** bat baino gehiago eman zion gazteenari. Anton Garikano

Gabeziak pazientziaz eramatera aholkatzen zituen gaixoak, eta **eskandalurik** ez sortzera, beren premia guztiak aseak ikusten ez bazituzten. Askoren artean

Ponpeiaren amak alarma jo, eta publiko egin zen **eskandalua**. Juan Garzia

Zein bizimolde ote zen, nolabait esatearren, egun bakar bat ere neke eta **eskandalurik** gabeko hura? Patxi Zubizarreta

Zigor arina ezarri zioten, bi hilabete estatuko kartzela batean eta komunitate-lanak hamaika asteburutan, eta **eskandalua** ez zen oso ozena suertatu. Iban Zaldua

Berak **eskandaluz** jaso izan du proposamena. Aingeru Epaltza

Koordinakundeak «**eskandalutzat**» jo du epaia, eta helegitea jarriko dio. Berria - Euskal Herria

Zeren nehork ez baitezake onets, giristinoen erregek zernahi egin dezan, kristau mundu osoaren kaltetan eta eliza katolikoaren **eskandalutan**. Piarres Xarriton

Eskandalu batetik ihesi joan zen Italiara, eta bertan geratu zen. Oskar Arana

Aralarrek adierazi duenez, «zentzugabekeria eta **eskandalua** da publikoki lanean eta ideia batzuen defentsan -hauek zuzenak izan edo ez- ari diren pertsonei ETAko izatea egoztea». Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Saderen obra guztia **eskandalu** hutsa da. Berehala nobela horrek sekulako arrakasta izan zuen eta **eskandalu** handia sortu; haren oihartzunak zeharo gainditu zuen Laclosen itxaropena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Mende honetako **eskandalu** nagusia hauxe besterik ez da: Kristautasuna kristauentzat utopia bat dela, utopia handios bat. Piarres Xarriton

Liburuak arrakasta handia izan zuen eta **eskandalu** are handiagoa sortu zuen. Jon Muñoz

Chomskyren iritziz, behaviorismoa "irteerarik gabeko bazter-txokoa da, edo, besterik gabe, **eskandalu** intelektuala". Itziar Laka

«Egun Zapaterori esaten dizkiotenak 1998an Aznarri esanez gero, egundoko **eskandalu** nazionala piztuko litzateke», gaineratu zuen. Berria - Harian

Askatasuna erakundeak gogor salatu zuen epailearen erabakia eta «**eskandalu** juridikotzat» jo zuen. Berria - Euskal Herria

Europako **eskandalu** demokratikorik handiena. Berria - Euskal Herria

Egun argiz, bederen, ez genukeen bide luzerik eginen, **eskandalu** publikoaren salaketapean inork kargu hartu gabe. Aingeru Epaltza

Bera baino 31 urte gazteagoa zenez, izugarrizko **eskandalua** sortu zen, baina bere mutil-laguna izan zen Isherwood hil arte. Berria - Kultura

Hemen denok elkar ezagutzen dugunez, erraza zen nor nor zen asmatzea eta sekulako **eskandaluak** sortuko ziren gure zenbait bezeroren izenak eta apeta ezkutuak jakinarazi bagenitu. Jon Arretxe

ETA desagertu gabe Ibarretxeren Plana Eusko Legebiltzarrean onartuko balitz, moralki onartezina litzatekeen itzeleko **eskandalu** politiko baten aurrean egongo ginateke. Berria - Euskal Herria

Nicolas Sarkozy Barne ministroa espiatzeko 2004an ustez emandako aginduak egunotan piztutako **eskandalua** dela-eta, Dominique de Villepin lehen ministroari dimisioa eman dezan eskatu diote. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zalantza egiten zuen ez ote ziren haien artean errebelderen batzuk sortuko, zerbait zirelakoan harropuztuko zirenak, liskarrerako prest eta **eskandalu**-eragile. Askoren artean

Seme hark, aldiz, memoria liburu minberatu, zintzo eta aldi berean **eskandalu**-emailea utzi zuen askoz lehenago idatzirik eta argitaraturik: Papa. Edorta Jimenez

Unibertsitateak ez du batere iruzkinik egin nahi **eskandalu**-andana bateko azken alea den honetaz. Oskar Arana

Bakardadeak eta deabruaren trikimailuek eta aztikeriek itsutu egin ohi dute marinela, eta horretara, haragiaren irritsarekin itsuaraziz, Sodoma galarazi zuen bekatuan erorarazi; gizonezkoak gizonezkoaren larrua jo! - **eskandalu** airez esan zuen-. Edorta Jimenez

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Parmalateko finantza **eskandaluagatik** 29 lagun auzipetuko ditu fiskaltzak. Berria - Ekonomia

Blairren agintaldia kolokan dago, laboristen finantzaketa **eskandalua** dela eta. Berria - Mundua

Lehenago ustelkeria **eskandalu** batean murgildua egon zen, bera buru zen Alderdi Kristau Demokratarako legez kanpoko donazioak jasotzeaz akusatuta. Berria - Mundua

Iraganeko ustelkeria **eskandaluek** nazioarteko komunitatea uzkur dezakete. Berria - Mundua

Allen Johnson atleta estatubatuarrak (munduko txapelduna 110 metro hesietan) atzo azpimarratu zuen Balco laborategien dopin **eskandaluak** ez duela eraginik izango AEBetako taldean. Berria - Kirola

5 zarata nabarmena.

Aldameneko bidaiariaren kazetara joan zaizkio begiak, ***Eskandalua*** *San Mamesen: 0-3* dakar titular larriak. Urtzi Urrutikoetxea

Bere logela hirugarren solairuan, eta Santosena lehenengoan izan arren, harrigarria zitzaion atxiloketaren **eskandaluak** iratzarri ez izana. Josu Landa

Isilik gelditu ziren anaiak, sasi-santuak **eskandaluren** bat sortuko zuen beldur. Askoren artean

Edariak ekarriko zion Poeri hondamendia: taldean ondo hitz egiteko bizkorgarriren bat behar izaten zuen, baina kopa bat jerez hartzea sekulako mozkorraldi baten hasiera gertatzen zitzaion; eta gutxitan iristen bazen ere intoxikaziora, **eskandalu** izugarriak sortu zituen behin baino gehiagotan. Koro Navarro

6 ***eskandaluzko*** *izlag* eskandaloa sortzen duena, eskandalosoa, eskandalagarria.

Diru gizona zen, lukurrerua, txerpolariei maileguak egunka egiten zizkiena eta orgatilak errentan ematen, **eskandaluzko** korrituak eskatuz. Karlos Zabala

Merteuil andrearentzat zinez laidogarria zen egoera hark haren zalgurdia iragarri zuten arte iraun omen zuen; eta bazihoalarik, **eskandaluzko** oihuak areago ziren gehitu. Jon Muñoz

Eskandaluzko aldizkari bat baino irrikagarriagoa iruditu zitzaidan zerrenda hura. Joxan Elosegi

Nola baitaramazu bizimolde zuhur eta landara bazterreratua, **eskandaluzko** abentura horiek ez dira zuganaino heltzen. Jon Muñoz

Bere burua defendatu zuen, nik iguriki bezala; eta, zuk ere iguriki zenezakeen bezala, sorrarazia nion mesfidantzan eta izuan funtsatu nuen erdeinu haren froga, bai orobat ondoren gertatua zen **eskandaluzko** ihesaldian, nire gutunei ihardesteko ukoan, gutunak hartzeko ukoan, etab. Jon Muñoz

Bere irri-algara **eskandaluzko** haiek. Fernando Rey

Karlos Zabalak euskaraturiko eleberri **eskandaluzko** hau gozatzeko parada ezinago egokiak izango dira udako arratsalde edo gau ameslari bezain eldarnio amaiezinekoak. Berria - Kultura

Uztazu esaten ni sekula ez naizela hain gorabehera **eskandaluzkoetan** nahasirik egon. Jose Morales

Idoloen adorazio **eskandaluzkoa**. Aingeru Epaltza

Karlos Zabalak euskaraturiko eleberri **eskandaluzko** hau gozatzeko parada ezinago egokiak izango dira udako arratsalde edo gau ameslari bezain eldarnio amaiezinekoak. Berria - Kultura

Espero genuen arren, **eskandaluzkoa** da. Berria - Euskal Herria

San Isidro Institutuko behinolako kaperan ematen zen Kimikako eskola, batez ere, **eskandaluzkoa** zen. Josu Zabaleta

Langileen batzordeari «**eskandaluzkoa**» iruditu zaio arbitroen erabakia. Berria - Ekonomia

Irabaziak «**eskandaluzkoak**» direla salatu zuen, eta beharginen soldatak KPIren azpitik igotzen dituztela gaitzetsi zuen. Berria - Ekonomia

-Ba al dago zerbait lizunik, **eskandaluzkorik**? Koldo Biguri

Onartezina da, inondik ere, nire jokaera: **eskandaluzkoa**, irauitzailea, desorekatzailea; lege-haustailea, lizuna, probokatzailea. Karlos Linazasoro

Literatur kritikari guztiak ez ziren bat etorri iritzi horrekin, eta prentsan kanpaina ugari egin zituzten, Zolaren literatura **eskandaluzkotzat** joz. Karlos Zabala

Eskandaluzkoena, baina, ez da munduan gosea dagoela, baizik eta arazo horrek irautea, konpontzeko baliabideak daudenean. Berria - Gaiak

7 ***eskandalu bide*** *(orobat* ***eskandalubide****)*

Ez zuten **eskandalu**-bide izan zitekeen lanbiderik onartzen, baizik eta eginbide santu, zuzen, onest eta onuragarrietan jarduten zuten. Askoren artean

Baina beretzat eta anaientzat **eskandalu**-bide izateari beldur handia zionez, ez zuen haiekin eztabaidan aritu nahi izaten. Askoren artean

Ez beza eduki adiskidetasun pribaturik, ez dadin gerta, batzuk besteak baino maiteago izanik, denentzat **eskandalu**-bide gertatzea. Askoren artean

Unetik unera are nahigabetuago nintzen, eta jakinminez irrika bizian nintzen arren, ez nintzen ausartzen ezein albisteren galdea egitera, gero agian mundu guztiari gorde ahal

izan nahiko nion urratsa **eskandalubide** gerta zedin beldurrez. zeren, erdietsi ahal izan duzun ospeaz den bezanbatean, ez duzu fermuki galdatuko, hala uste dut, balio handitan har dezadan **eskandalubide** bat sorrarazteko edo baliatzeko antzea. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste eskandalu (5); **beste eskandalu bat** (4); **eskandalu bat** (15); **eskandalu bat da** (4); **eskandalu batean** (3); **eskandalu bide** (7); **eskandalu demokratikorik** (3); **eskandalu eta** (7); **eskandalu handia** (5); **eskandalu hutsa** (3); **eskandaluak eragin** (3); **eskandaluak eragin** (3); **eskandaluak ez** (3); **eskandaluak ez** (3); **eskandalurik ez** (4); **eskandalurik gabe** (4); **eskandalutzat jo** (13); **eskandalutzat jo du** (5); **eskandalutzat jo zuen** (6); **eskandaluzkoa da** (4); **eskandaluzkoa izan** (3); **eta eskandalu** (10); **eta eskandaluak** (4); **eta eskandaluak** (4); **koordinakundeak eskandalutzat** (3)

---

eskandalubide i**k eskandalu 7**.

---

eskandalugarri ik **eskandalagarri**.

---

eskandaluka *adlag* eskandaluak piztuz.

Zaldun dohakabearen lagun joan ziren denak, zalapartaka eta **eskandaluka**, nik nahi nuen bezala. Jon Muñoz

---

eskandalutxo *iz adkor* gorabehera txikiko eskandalua.

Horixe, edo menturaz ama ahalketzen zuen arrebaren konturen bat komentatu behar zidan, ez zuen alabarekin harreman gozoa ukan inoiz eta pisu bat hartua zuten Marinak eta biek herrian bertan, **eskandalutxoa** garai laiotz haietan. Koldo Izagirre

Tesi bikoitz hau, gutxien-gutxiena hartarakoxe zen Lore Jokoetako tribuna festaliarretik proklamatua, sozietateko **eskandalutxo** baten goragailuak are gehiago potentziatua, zenbaitek txalotu egin du. Joxe Azurmendi

---

eskandinabiar ik **eskandinaviar**.

---

eskandinaviar *(orobat **eskandinabiar** g.er.) izlag/izond* Eskandinaviakoa, Eskandinaviari dagokiona; Eskandinaviako biztanlea.

Niels zen, zalantzarik gabe, norvegiar eta apika are **eskandinaviar** matematikaririk onena. Jon Muñoz

Britainia Handian eta **eskandinaviar** herrialdeetan. Iñaki Mendiguren

Karolinjioen Inperioaren eta Wessex-eko erresumaren itsas mugetan, **eskandinaviar** piratek, Mendebaldeko Kristandade jaio berrian, agian Frisiako itsas marka-gizonengandik ikasia zuten ontzigintza eta itsasketa-teknikari hain probetxu ona atera ziotenez, itsasoko agintea eskuratu zuten. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko kristauek Normandia eta Danimarkako **eskandinaviar** kolonizatzaileak konbertitzeko balentria osatu zuten, **eskandinaviar** gerra-taldeak beren eskortara ekarriz beren jatorrizko gordelekuetan. Iñaki Mendiguren

Eskandinabiar hizkuntzetan ahoskabe baten atzetiko *m* ahoskabe bat badago. Isabel Arrigain

Eskandinaviar jazzeko banda interesgarrienetako bat da. Berria - Kultura

Italiar errenazimentuaren tankerako **eskandinaviar** tresnak. Iñaki Mendiguren

Patrice Leconteren gozotasun jokoekin eta Bjoern Rungeren **eskandinaviar** laztasunarekin abiatu zen atzo Berlinale jaialdiko sail ofiziala. Berria - Kultura

Erresuma Batuari, Europako Ekialdeari eta herrialde **eskandinaviarrei** keinua egin diete horrela, beste ituna leunegia zelakoan baitziren. Berria - Ekonomia

Suedian gidari **eskandinaviarrak** izan ohi dira nagusi. Berria - Kirola

Gero eta artista **eskandinaviar** gehiagok darabilte bideoa artea egiteko. Berria - Kultura

Guk ez dugu ahantzi behar hegaldi luze bat hasi berria dugula eta, zikoinekin batera, gau **eskandinaviar** luzea utzi, eta zeruan goiti abiatu garela, Hegoalderantza. Patxi Zubizarreta

Diseinu **eskandinaviarreko** platerak, plater hegalarien itxurako hautsontziak. Joxan Elosegi

Nire aurrean, neska gazte bat, bakero beltzak jantzita, ia ni bezain altua, ingelesa edo **eskandinaviarra**. Joxe Austin Arrieta

• **2** (izen gisa)

Gu jo gintuen laino berak **eskandinaviarrak** jo zituen bi egun geroago! Berria - Kultura

Irlandarrek badute beren soinua, **eskandinaviarrek** eta bretoiek ere bai, Portugalgo goialdean aski hedatua da, Frantzia osoan dute etxeko, zer esanik ez Piamonte-n eta Italian barrena. Koldo Izagirre

Dnieper eta Neva-ren arroetako eslaviar barbaroen konkistatzaile izan ziren errusiar **eskandinaviarrek** kultura kristau ortodoxoaz egindako onarpenean. Iñaki Mendiguren

Gronholm eta Solberg ez dira podiumean sartzeko lehian egon daitezkeen **eskandinaviar** bakarrak. Berria - Kirola

Eskandinaviarren hegemonia militarrari eta merkataritzazkoari erantzunez, alemaniar hiriek, haiek ere lortua baitzuten beregaintasun politikoa, Baltikoko hegoalde osoan zabaldu zuten beren eragina, armen eta merkataritzaren bidez. Koro Navarro

Historian ezagutu diren herodianismoaren praktikatzailerik erabatekoenak pagano izandako **eskandinaviar** barbaro inbaditzaileengan aurkituko ditugu. Iñaki Mendiguren

Suediako Rallyko izotzean **eskandinabiar** ez den lehen garaile bihurtu da aurten. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskandinaviar herrialdeetan (3); **eta eskandinaviar** (3)

---

eskandinaviera *iz* Eskandinaviako hizkuntza.

Frantziar izeneko Taillefer normandiar juglareak Hastings-eko gudura zihoazenean bere zaldun-kideei adore emateko ahotsa altxa zuenean ez zien *Völsungasaga* kantatu **eskandinaviera** zaharrean, baizik eta *Errolanen Kantore*a frantsesez. Iñaki Mendiguren

---

eskaneatu, eskanea(tu), eskaneatzen **1** du *ad* eskaner batean zehar pasarazi.

Eskaneatzeko eta digitalizatzeko teknika aurreratuenak erabiltzen dituzte, Haz laserra esaterako. Berria - Kultura

Frogen oinarri diren eta ehun bat mila orritan biltzen diren dokumentuak **eskaneatzen** eman dituzte hiru asteak abokatuek. Berria - Euskal Herria

Hiru asteko etenaldian, 75/89 eginbideko ehun mila orri inguru horiek **eskaneatzen** jardun dute defentsek. Berria - Euskal Herria

Dena izango da **eskaneatuta**, edo digitalizatuta. Berria - Harian

Turista gisa, negoziorako edo beste edozein arrazoirentzako AEBetan sartuko diren atzerritar gehienen erretratuak eta hatz markak **eskaneatuta** izango dira, jagoitik, eta datu base batean gordeko dira. Berria - Mundua

Eskaneatu egin dut, eta orain nire gustura ipiniko dut. Joxemari Urteaga

Jakizu!, esango nuke neure burua **eskaneatu** eta lau-bost urtera iritsita. Iñigo Aranbarri

2 (era burutua izenondo gisa)

Ez litzateke erakusketa txarra izango: ikusleen poltsa **eskaneatuak**, museoko paretetan proiektatuta. Berria - Kultura

---

eskaneatze *iz* eskaner batean zehar pasaraztea.

Filmeko irudia kolpe batetik grabatzen da; bideo-irudia, berriz, elkarren gainean dauden lerro horizontalak bata bestearen ondoren aztertzen dituen **eskaneatze** elektroniko batez erregistratzen da. Josu Zabaleta

Analistak begiradaren eta gogoetaren bidez aztertu behar ditu obrak (Ehrenzweigek **eskaneatze** inkontzientea esapidea darabil horretarako), eta ez beren bolumen birtuala (6-2) zapaltzen ahalegindu. Josu Zabaleta

Horiez gain, ez genituzke ahaztu nahi ez Joan Karlos Alonso, ordu mordoa eman baititu **eskaneatze** lanetan ordenagailuan, eta ez Joxe Ertzibengoa. Patxi Ezkiaga

Bi irudi mota horien arteko oinarrizko desberdintasuna ez datza ez fotogramen arteko beltz-aldian, ez bideoaren argi- **eskaneatzean**, elkarren segidako irudien agertzeko maiztasunean baizik. Josu Zabaleta

---

eskaner **1** X izpizko gailua, gauzaki baten sekzio transbertsalak informatikaren bidez analizatea ahalbidetzen duena.

Godfried Hounsfieldek erabili zuen lehenbiziko aldiz **eskaner** tresna bat burmuina barrutik hobeki aztertzeko. Pello Salaburu

Ordenagailuaren, interneten eta argazki **eskanerraren** erabilera. Herria

Bi gailu berri ditu Gipuzkoa Poliklinikak, punta-puntakoak: doitasun handiko irudiak ematen dituen erresonantzia magnetikoa, eta software boteretsua darabilen **eskanerra**. Berria - Gaiak

Han ikusi du aparatua, piztuta; ondoko mahaitxoko **eskanerrean** sartu du argazkia eta, minutu pare bat geroago, pantailan dago neskatoaren aurpegia. Iban Zaldua

Beste **eskaner** bat egin diogu. Berria - Kirola

Pairatutako zaurien ondorioz, Jon Karna Ruiz de Viñasprek konortea galdu zuen erietxean, eta **eskanerra** egin behar izan zioten. Berria - Euskal Herria

Israelgo lehen ministroari garuneko **eskaner** bat egin diote eta horrek erakutsi du burmuinean daukan edema apurtxo bat txikitu dela. Berria - Mundua

Haien garunen **eskanerrei** begira ikusi dute estresak garuna txikitu egiten duela. Berria - Gaiak

Bernat Etxeparerengandik 1970era bitarteko euskal literaturako 300 obra euskalki eta genero guztietakoak hautatu eta digitalizatu zituzten, ordenagailuan mekanografikoki kopiatuz, artean ez baitzen lan horretarako **eskaner** egokirik. Berria - Harian

Lantegian fundizioko labeak edo digitalizaziorako **eskaner** aurreratuenak erabiltzen dituzte. Berria - Kultura

Usain horren osagarri guztiak aztertzen, **eskanerrik** hoberenak lanak izango lituzke. Gotzon Garate

Ia berrogeita hamar urte geroago, Ernest Haasen semeak, Alexek, aitaren hainbat argazki hartu eta **eskanerretik** iragazi ditu. Berria - Kultura

Beharbada emakumeek dena dakitela pentsatu nuen, sentimenduak irakurtzen dizkigun **eskaner** bat daramatela beren baitan itsatsirik, eta alferrik nekatzen garela gizonok horiek estali edo erraz gobernatzen ditugun itxurak egiten. Joxean Agirre

2 *iz* formak eta karaktereak ezagutzen eta tratatzen dituen gailu optikoa.

Begira, **eskaner** hori fotokopiagailu moduko bat da, zuk argazkia jarri bertan, flax bat atera eta ordenagailura bidaliko dizu argazkia, eta behin ordenagailu barruan dagoela, nahi duzuna egin dezakezu. Antton Olano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskaner bat** (8); **eskaner bat egin** (5)

---

eskapabide *iz* eskapatzeko bidea.

Batetik, lurpeko gordabiak eta sator-bideak ere ba omen ziren eginak ihesleku edo **eskapabide**, bestetik, izan ditake ere beren jukutriak eta laguntzak izan dituzten handik lekutzeko. Herria

Ez zen **eskapabiderik**, eta halabeharrari lasaitasunean aurre egitea hobe zen. Elena Touyarou

---

eskapada **1** *iz* ateraldi laburra.

Izan ere, baserriko lan gogorra ez baitzen traba tarteka, etxekoek nahi baino maizago, herriko tabernara **eskapadak** egiteko. Xabier Etxabe

Mendebaldeko kalekumea, yupi-jasp eta zeinahi egokieratako ezkongabea gustura joaten da horrelakoetara astegunean, sagardoa atsegin duelako, sustrai bila edo **eskapada** klandestino hutsagatik. Edorta Agirre

Askotan zeneukan amestua goierritarrarekiko **eskapada** erotiko bat. Lourdes Oñederra

Sergiok erakutsi zion trenak husten eta **eskapada** bat baino gehiago egin zuten elkarrekin. Harkaitz Cano

· Maite ginituen ateraldi horiek, **eskapada** batzu bezala baitziren eguneroko dorpe eta iluntto haitarik nolazbait. Herria

2 eskapatzea.

Errana izan denez, ihesi joan omen da bainan laster zuhaitz baten kontra bururatu du **eskapada**, handik laster hiltzen zela. Herria

3 *irud/hed (pilotan)*

Lehenengo tantoak Kokaren alde izan baziren ere, Goñi II.ak, **eskapada** eta dejada pare batekin, aurretik jartzea lortu zuen: 2-4. Berria - Kirola

Peñak sakeari esker egin zituen hurrengo hiru tantoak, bi zuzenean eta **eskapada** baten fruitu 8-12koa. Berria - Kirola

Gero du bankarrak bere besoa zinez laxatu eta bere **eskapada** abiatu, 29-21, batean taula luzeak, bestean sarea bera edo eskuin alde hura miatuz. Herria

Falta orduan botea Waltarik ere horra anaien **eskapada** lerro pollitean: 29-18 anaiek. Herria

4 trantze larri bat saihestea.

- **Eskapada** ederra egin duzu -esan zion, oraindik urduri, baso-guardak. Joxemari Urteaga

1981ean **eskapada** ederra egin zenuen, tiroa egiteko moduan parean eduki zintugunean. Berria - Harian

Eskapada galanta egin dinagu. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskapada ederra** (6); **eskapada ederra egin** (5); **eta eskapada** (4)

---

eskapadatxo *iz adkor* eskapada.

Berrogeita hamar bat urteko gizon bat ikusten dut, neska gazte batekin dago, aita-alabak iruditzen zaizkit hasieran, baina irakasle-ikasleak direla **eskapadatxo** batean otutzen zait gero, gizonak eskua laztandu nahi dio, muxuren bat eman, baina neskari lotsa ematen diola dirudi, ez dagoela batere eroso. Mikel Hernandez Abaitua

---

eskapaka *adlag* eskapatzen.

Eskapaka bezala urrundu nintzen, erdi lasterka. Janbattitt Dirassar

---

eskaparate 1 *iz* erakusleihoa.

Batzuk aldizkari pornoak ia ateetaraino zituzten dendetan sartzen ziren, beste batzuek kamera-irrati-eta abar dendetako **eskaparateak** eta prezio beheraldiak behatzen zituzten. Iñaki Zabaleta

Albertok egin zizkion aholkuak jarraituz amaitu zuen **eskaparatea** atontzen. Joxemari Urteaga

Noski, horrenbeste anuntzio, abenduan abiatzera goazeneko kaleetan eta jarriaz gero, telebistetan halamoduz anuntzioz josi eta gero, **eskaparateak** hala txukundu eta hornitu eta gero, nola ez ohartu? Pello Zabala

Aski da **eskaparateak** begiratzea, lagunekin hitz egitea, tabernan jendearen hitzak entzutea, kultura horrek gure duintasunari eragiten dion hondamenaz jabetzeko. Pako Aristi

Entzun dut politikoa ere, bere departamenduak atzerriko leku behartsuenetan landuko dituen egitasmoen berri ematen, eta Gobernuz Kanpoko Erakundeen bultzatzaile bezala agertu da egunkarietako lehen orriko **eskaparatean**. Pako Aristi

Eskaparateen neoien aurrean. Berria - Kultura

Plastikozko zabor poltsak dituzte burutik behera sartuta eta **eskaparateetako** leiarretan eskuz daude idatzita uler ez ditzakedan hitzak: marketing, flores. Hasier Etxeberria

Senar eta senargaiok irudi apaingarriak baizik ez ginen han, **eskaparateko** manikiak baino gehiago ez, behinik behin. Joxean Agirre

Eskaparateetako plastikozko maniki horietako bat. Jasone Osoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hiribideko denda garestiek **eskaparate** argituak erakusten zituzten. Iñaki Zabaleta

Ez oso ongi marraztua letreroa, bi **eskaparate** txiki saihetsetan, eta eranskinez beteriko kristalezko sarrera. Iñaki Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Bere lan ofizialetako batzuk aipatu dizkigu: dekoratu egile, **eskaparate** jartzaile, obretako langile, horma margotzaile. Harkaitz Cano

4 irud/hed

Dena **eskaparate** den gizarte honetan, gu ere leihoratu ginen noizbait. Andoni Egaña

Eskolartekoak Euskal Herri osoko **eskaparate** bat izan behar du. Berria - Kultura

Elurraren kapritxoak horrela dira, eta noski, bere **eskaparatera** begira ipini ditu denak segituan: saltzaile aparta baita. Pello Zabala

Entzun dut politikoa ere, bere departamenduak atzerriko leku behartsuenetan landuko dituen egitasmoen berri ematen, eta Gobernuz Kanpoko Erakundeen bultzatzaile bezala agertu da egunkarietako lehen orriko **eskaparatean**. Pako Aristi

Hor goiko otsaileko **eskaparatean** gariaren ernetze, jaiotze, gari-orratzen bixtatzea, garien garatzeaz jardun gara. Pello Zabala

Hori ez da partida garrantzitsuak lortzeko **eskaparate** onena. Berria - Kirola

Udaberriaren **eskaparate** zabal ongi hedatuan, lore ttikiak zabaltzen, hortxe egoten dira begien aurrean. Pello Zabala

---

eskaparazi, eskaparaz(i), eskaparazten du *ad* eskapatzera behartu.

Trinketeko joko pollit guti kubanoak, haatik pilota batzu ziztuan **eskaparazten** edo botean ezin ekarrizkoak, edo bigarren erreferan pausatzen. Herria

---

eskapatu, eskapa(tu), eskapatzen 1 da *ad ipar* ihes egin, ihesi joan. ik **itzuri**.

Buchenwald-era ekarri eta hamabortz egunen buruan, preso talde bat **eskapatzera** ahalegindu zen, lur azpian tunel bat zilatuz. Eneko Bidegain

Eskapatzera entseatu ziren ur-zikin hodietatik, baina ezinean, berogailu zentraleko hodien artean gorderik zeudela 3 egun hartan, zakurrek atzeman zituzten. Marzel Etxehandi

Espiun bezala ari nintzala, Cologne-ko gaulliste-n elkartearekin harremanak banintuela, **eskapatzeko** sare bat zuzentzen nuela, Aliatuak Cologne-n errezebitu behar nintuela, akusatzen naute. Michel Oronoz

Hasperen bat **eskapatzen** zaio. Eneko Bidegain

Irria **eskapatzen** zait. Marzel Etxehandi

Ateratu nahian, espalda kolpe bat ematen dio ateari eta lasterka **eskapatzen** da. Ramuntxo Etxeberri

Beste aldi batez, Seminarioa utzirik, urte bat barne hurbil apeztu behar nintzela normalean eta ezin menturatuz aitamei ene erabakia ezagutaraztera, oinez **eskapatu** nintzen eta ibili, ibili, leher egin arte. Piarres Aintziart

-Ez bedi **eskapa** -orroatu zuten denek batera, armen mehatxupean baten batek esku-burdinak ukaraietan hertsatu zizkiola. Itxaro Borda

Joanden agorrilaren 20 ean Miarritzeko aireportuan arrastatua izana zen preso batek, Patrick Richard deituak, ardietsi du **eskapatzea** astehen aratsaldean, Baionako ospitalera eremana zutelerik besotik operatzera. Herria

2 (-tik atzizkiaz)

Funtsean, Erroma hiriburua sortuko ote zen, Enea ez balitz Troiatik **eskapatu**? Piarres Aintziart

Bazkari denboran, Nina noiz behinka, erdi gordezka, mahaitik **eskapatzen** da eta etortzen zaio sukaldera bisitatzera. Ramuntxo Etxeberri

Medikuek zenbait urte zuela alzheimer eritasuna kausitu zioten; halaz etxea bizidunez husten zenean, merkatura edo mezetara joateko adibidez, lo-gela zerratutik **eskapatzen** zen, baratzeko pikuaren puntaren puntara hupatzeko. Itxaro Borda

Bi hesi haien artetik ez zen **eskapatzerik**. Eneko Bidegain

Maiana eskalearen besoen estekatik **eskapatzen** saiatu zen. Itxaro Borda

Airea burrustan **eskapatu** zitzaion biriketarik. Itxaro Borda

Harriaren gelditasunetik musikaren hots isil bat **eskapatzen** bezala da, eta erregeak bere aurpegia eskuin aldera bihurturik, bakarrik berak aditzen dukeen soinuari beharria eskaintzen dio. Piarres Aintziart

-Ederretarik **eskapatu** gara, Jakes. Eneko Bidegain

3 (-ri atzizkiaz)

Orobat etengabeko iraupen bat dugu denek desiratzen, egiten ditugun guziak heriotzeari **eskapatu** nahiz egiten baititugu berdin. Piarres Aintziart

Hiltzera kondenatzen zuen Atenasko legea goretsiz Sokratesek herioari **eskapatzeko** Kritonen ihes deiari ezetz ihardesten zion garaian ez gaude gehiago. Itxaro Borda

Destinoaren geldiari nehor ez da **eskapatzen**, Alkibiada besteak baino gutxiago. Itxaro Borda

4 (-ra atzizkiaz)

Gaitziturik, Nina **eskapatzen** da sukaldera. Ramuntxo Etxeberri

Jainko-gizon lanak egin orduko **eskapatzen** nintzen biziaren eremuetara, Omiene tribuko kristauen laguntzen, noiz hargintxo, lurrezko etxeetan, noiz egurgile oihan oparoetan. Piarres Aintziart

Badakit zergatik abstrakziora **eskapatu** naizen: [...]. Piarres Aintziart

Kolegiotik **eskapaturik**, kolegiorat **eskapatzen** nintzen. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat eskapatu (5); **bat eskapatzen** (3); **bat eskapatzera** (3); **ederretarik eskapatu** (5); **ederretarik eskapatuak** (4); **eskapatu aitzin** (3); **eskapatu behar** (4); **eskapatu bezala** (3); **eskapatu da** (6); **eskapatu eta** (3); **eskapatu naiz** (5); **eskapatu zaio** (4); **eskapatu zen** (10); **eskapatu zitzaion** (8); **eskapatzen ahal** (4); **eskapatzen da** (9); **eskapatzen dela** (3); **eskapatzen dira** (4); **eskapatzen nintzen** (3); **eskapatzen zaio** (4); **eskapatzen zait** (4); **eskapatzen ziren** (7); **eskapatzen zitzaidan** (3); **eskapatzera utzi** (6); **eskapatzera uzten** (4); **eta eskapatzeko** (4); **eta eskapatzen** (3); **lasterka eskapatzen** (3)

---

eskapatze *iz ipar* ihes egitea, ihesi joatea.

Arats batez, Baionako polizategitik eskapatu zen, **eskapatze** horrek ukan baitzuen orduan aipaldi! Herria

Azken egunetan, espainiar gudarosteak etengabe erasotzen zituen mugako postuak, eta haien **eskapatzeak** sekulako mazelakoa ematen zion frantses gudarien moralari. Elena Touyarou

Nik bai nahiko nituen ahantzi, anaiaren heriotza eta haren azken hitzak, laneko nagusiak egin zidan afruntua, rugbyaren uzteko erabakia, aitatxiren **"eskapatze"** beldurgarria, eta, azkenik, aitaren jokaera sinestezina! Daniel Landart

Euskal militanteen **eskapatze** harrotsuek denak irrieginarazi ondoan, iduri du poliza mendekatu nahi dela eramaiten dugun desobendientzla zibila dinamika zikinduz. Herria

Hamar egun berantago, Levert jujeak ikerketa pean ezarri du, **eskapatzearen** laguntzaile eta gaizkile elkarte batean parte-hartzea leporatuz. Herria

· Hara nun egun akusatzen gaituzten La Santéko presondegitik **eskapatze** batendako ikuskatze batzuen egiteaz joan den abendoaren 21ean presondegi hortako murrueri goiti igan ginelarik euskal preso politikoen hurbiltzearen aldarrikatzeko helburuarekin! Herria

---

eskapatzear *adlag ipar* eskapatzeko zorian.

Neskatxak bortxatuko zuela uste zuen eta alde orotara higitzen zen, **eskapatzear**. Itxaro Borda

---

eskapismo *iz* gogoko edo gustuko ez den errealitateari ihes egitea.

Orain 80ko hamarkadako idealismoa, edertasunarekiko gurariak eta **eskapismorako** joera utzi eta kasik modu periodistikoan, bertso libreen bidez, errimarik gabe, prozesu sozialak aztertzen dituen irudien jarraipen bat erakusten da. Berria - Kultura

---

eskapo *(orobat **eskapu** g.er.)* **1** *adlag* eskapatzen.

Motxila korrika eta presaka hartu, eta **eskapo** joan nintzen metroa hartzera. Fernando Rey

Bonbetatik traktoreetan **eskapo** zihoazen 70etik gora kosovoar iheslari hil zituzten NATOko hegazkinek Jakova-n, zibilak guztiak. Iñigo Aranbarri

Oroit dut oraino, begi bistan baneuka bezala, kostatik legoa laurdenera ikusten genuen ontzi eder hura, eguzki printza gozo batek argitua, bela guztiak hedaturik, bagetan harro tinkatua, eta nik dakita zer mehatxu eragiten zidana, metrailatik **eskapo** baitzetorren. Koldo Izagirre

Eta orduan niri, ezinbestean, barreneko aztoramena eta asaldura etortzen zitzaizkidan: une oro handik **eskapo** ateratzeko gogoa, etxe hartatik ihes egiteko gogoa. Fernando Rey

Kepak kanporako boluntarioak eskatu aitzin atera da Mikel, giro itogarritik **eskapo**. lasterka joaten ginen usu intxaurrondo azpi edo inguruan urgoiki zebilen oilo ama familiakoari, zakurrek ihausi eginez, gatuek ihesi eta puralleriak lau haizetara **eskapu**. Aingeru Epaltza

Juduak leku batetik bestera **eskapo**. Pello Salaburu

Lehoikume xalo bat bi hiena zitalengandik **eskapo**. Aingeru Epaltza

Gaur bera sartu ondoren utzi ditudan bezala neuzkan orduan ere ateak goiz-goizetik zabal-zabal eginda, eta, eguraldi zaztaletik **eskapo** nonbait, tximeleta hori bat zebilen tabernan itxulanbilka. Pako Aristi

Nire begiei **eskapo** ari zen! Aingeru Epaltza

2 (izen gisa)

Haur jipoituen artean bilatzen du **eskaporako** lagunik. Pablo Sastre

3 ***eskapoan*** eskapatzen.

Bertzenaz nekez atxikiko nikek **eskapoan** ateratzeko gogoa. Aingeru Epaltza

Bonbardeotik ihesi mendira joan, han abioietako ametrailadoreetatik **eskapoan** arbolen bueltan arineketan ibili, eta hiria sutan zela kalera jaitsi zinetenean deitu zian hiri emakume batek bere gelako mesanotxea jaisteko laguntza eske, han paper eta balio handiko gauzak zeuzkala-eta. Pako Aristi

3 ***eskapo egin*** ihes egin.

Gure ahots gero eta gorei adi, ostatuko begiei **eskapo egitea** erabaki genuen. Iñigo Aranbarri

Alabaina, Orthezetik **eskapo egiten** ahalko banuen, prest nengoen munduaren hondarrerainoko bidea urratzeko. Estebanek beste bide bat atzeman zuen **eskapo egiteko**. Aingeru Epaltza

Tarte horretan, atea ireki zen aldiro, begiek sarrerara **egin** zioten **eskapo**. Aingeru Epaltza

Zientzilari bati, bere laborategian esperimentuak egiten ari den euli batek **egiten** dio **eskapo**, eta euli honek jadanik pertsona baten zentzua du. Patziku Perurena

Gelditzen zirenei, behinik behin, franko beren kasa **eskapo eginak** baitziren orduko. Aingeru Epaltza

· Migel Mailuk apezei itzuri **egiten** zien eta fraideei **eskapo**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskapo egin (6); **eskapo egitea** (3); **eskapo egiten** (3)

---

eskapu ik **eskapo**.

---

eskapula *iz* bizkarraren goiko aldean kokatzen diren bi hezur lauetako bakoitza.

Elastikoaren azpian (oraindik) lepoa inguratzen zidan bolatxozko idunekoa, **eskapulen** irmotasuna, eta, azkenik, profilez arrano begi bat ikustea lortu zenuenean baieztatu zenuen ni nintzela Donostia erditik ezer gertatu izan ez balitz bezala maleta batekin paseatzen zen gazte hura, izozki bati heldurik. Eider Rodriguez

---

eskapulario *iz* kutuna.

Saltokietan, kandelak, zapiak, liburu eta estanpak, **eskapulario** eta kutunak, dominak, ur bedeinkatuaz betetako botilatxoak, guzti-guztiak Paduako San Antonioren irudiarekin. Anjel Lertxundi

Han sartu ziren nafarrak, tiro bat bera ere egin gabe, euren txapelgorri eta arma zaharrekin, euren **eskapulario** eta agurrekin. Joseba Sarrionandia

Hirugarren argazkian, ohean etzanda eta kaputxinoz beztituta ageri da, buruan txanoa eta **eskapulario** handi bat bularrean duela. Ramon Saizarbitoria

Eskapularioak bedeinkatzera bidaltzen zituen komentura eta gurditxoan, umearen burukoaren azpian sartuta eramaten zituen. Jon Maia

---

eskar ik **esker**.

---

eskarabajo *iz* kalalardoa.

Pipia edo... Zulo handi samarrak dira, igual beste **eskarabajoren** bat ari da kirri-karra hor. Pablo Sastre

---

eskarazi, eskaraz(i), eskaratzen du *ad* eskatzera behartu.

Printzearen interesak amortizazio-eskubidea **eskarazi** dio kasu berean. Iñaki Iñurrieta

Iritzi kontrajarriak bota dira, gehiegi pentsatu gabe: etxera bidali, gurasoei esan, barkamena **eskarazi**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskardatu, eskarda(tu), eskardatzen du *ad* jorratu.

Etxekoek Pentze Patarrera ardi zain igortzen ninduten opor arratsaldeetan, zenbaitetan paira dezakedan bakartasun larrutu hau itxuratzen nuela uste dut, egunerokotasun **eskardatua**, lo ezinezko ordu txikiak, ahari buruz zoratuen antzera kaskoa etengabe alhan, galdezka eta dudaz beterik. Itxaro Borda

---

eskari **1** *iz* eskatzea, eskaera. ik **eskabide**.

Altzariak konpontzeko **eskariak** neuzkan, eta jabeek etengabe deitzen zidaten. Koro Navarro

Lehen **eskariak** barne-argia eskatzen du, bihotz-barnean jartzen baita jokoan gizakiaren bizitza. Askoren artean

Ez beldurtu, Zakarias, entzun du Jainkoak zure **eskaria**. Elizen arteko biblia

Epaileak ez du edozein **eskari** onartzen -zoro batek, besterik gabe, bere umearen aitatasuna edonori leporatzen diona, kasu-. Ramon Saizarbitoria

Jainkoak Learen **eskaria** aditu zuen: haurdun gertatu eta bosgarren semea eman zion Jakobi. Elizen arteko biblia

Aita dohatsuak onginahiz hartu zuen **eskaria**. Askoren artean

Izan bitza gau eta egun bere aurrean Jaunak, gure Jainkoak, nik egin dizkiodan **eskariok**. Elizen arteko biblia

Munduari **eskari** bat igortzeko bilduak zirela iruditzen zitzaidan, erregu bat oihukatzeko, geroago, gauzak hobeto ulertzen direnean, egin ahal izango den gauza bat eskatzeko. Josu Zabaleta

Nazioarteko Gurutze Gorriak Hussein ikusten uzteko **eskaria** egin zuen atzo, bere preso baldintzak aztertzeko. Berria - Mundua

Martxoan **eskari** bera egin zuten. Berria - Euskal Herria

Jaunak erantzun zion Samueli: "Onar iezaiezu **eskaria** eta eman erregea". Elizen arteko biblia

Manifestariek **eskaria** helarazi zioten Max Brisson Hautetsien Kontseiluko Hizkuntza gaietarako arduradunari. Berria - Euskal Herria

Gure **eskaria** kontutan hartuko duzuelako asmotan deneri esker beroenak. Herria

Ukatu egin zioten **eskaria**, behin eta berriz. Jon Muñoz

Auzitegi Gorenak immunitatea kentzeko **eskaria** baztertu zuen. Berria - Mundua

Jokin Zaitegik egindako **eskariari** men eginez, Guatemalara jo zuen 1954an, Euzko Gogoa zuzentzera. Berria - Harian

Eskariari baiezkoa eman zioten futbolari gehienek. Berria - Kirola

Perdigoikada [...]: Estatu Batuetako sozialisten **eskariei** erantzuteko, etorkizuna prestatzen ari den argudioa. Xabier Olarra

Barran, berriz, aita eta Emma ari ziren, bezeroen **eskariei** aurre egiten. Joan Mari Irigoien

Beharrean gaudenean ez iezaiezu entzungor egin gure **eskariei**, baizik libra gaitzazu arriskuetatik. Askoren artean

Atsegin izan zuen Jaunak Salomonen **eskari** hau. Elizen arteko biblia

Jauna, ene Jainkoa, adi ezazu zeure zerbitzari honen otoitza eta **eskaria**.

Arrazoi horregatik, oharra egin gura zigun, **eskaria** ere esan genezake. Urtzi Urrutikoetxea

Ez zenuen ahantziko haur hori zure **eskariz** hartu nuela neure gomendio. Jon Muñoz

Delaware Ohioko Emakume Beltzek **eskari** bat idatzi zutela ni ez urkatzeko. Anton Garikano

Saiatuko zela **eskari** hura betetzen. Ander Irizar

Gure **eskariak** segidarik ez zuen ukan. Marzel Etxehandi

1724ko maiatzaren 24ko ediktua, Fleury kardinalaren **eskariz** argitaratua. Juan Martin Elexpuru

Eskaria aurkezte hutsak ez du esan nahi inori paperak emango zaizkionik. Berria - Harian

Zerbitzu publikoetatik **eskaririk** heltzen al zaizue? Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bere begietan **eskari** mutu bat irakurri nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Charles Dickens edo Walter Scott bezalakoen liburuak faltatzen ez baziren ere, idazle katolikoenak zituen **eskari** usuenak. Zinematografiako apailua ezin uler daiteke teknikaren eta estetikaren (forma filmikoen) alorrak **eskari** ideologiko batekin artikulatzen dituen zentzuan analizatzen ez bada. Anjel Lertxundi

Haren aho itxiaren paretaren kontra egin zuen talka nire **eskari** isilak. Aingeru Epaltza

Beraz, Jaunagan ene seme maiteok, zuen **eskari** jainkotiarrei amore emanez, zuen Ordenaren Erregela -Inozentzio gure aurreko Aita santu gogoangarriak baietsia-, hemen jasotzen den eran aginpide apostolikoaz berresten dugu eta idazki honen babesez finkatzen. Askoren artean

Beti ere ikasketak euskaraz egiteko **eskari** handiena zegoen lekuaren arabera jokatu du EHUk. Berria - Harian

Zeregin berrietan diharduzu, bizi zara, ekinean zabiltza, mugitzen zara, maila berri bakoitzaren **eskari** berriak betetzen dituzu. Urtzi Urrutikoetxea

Hizketan hasi zitzaidan, poliki samar hastean, bizkorrago gero, nire **eskari** hitzik gabea ulertu balit bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Gruaroko eskualde guztian seiehun langaberi lana ematea: ez da gehiegizko **eskaria** gure aldetik. Josu Zabaleta

Motorraren hotsak isildu egin ditu guraso batzuen deiak, ozendu besteenak, azken orduko **eskari** ahaztu ezinezkoren bat entzunarazi beharrez. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskari-orri bat bete dut Ipar Dakotako lur-sail bat eskuratzeko; lur beltza da eta han diru pila irabaz dezakegu gariarekin. Lopez de Arana

Stendhali buruz idatzi dituen lanen fotokopiak bidali behar ditu **eskari**-gutunarekin batera. Anjel Lertxundi

Aitari **eskari** -otoitza. Elizen arteko biblia

Egoera hartan etsirik, gutun hau idatzi zien Antiokok juduei, **eskari** -eran. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurretik jasotako arkatz eta koadernoaz ohar batzuk idatzi zituen: hil hasierako janari- **eskaria** bideratu ostaturako, iraileko botikarien kongresurako izena eman, jasotako estreptomizina-lagin berriekin frogak burutu. Josu Landa

Errealismo desberdin horiek gizarte- **eskariak** , eskari ideologikoak batez ere, determinatuak dira, jakina. berbereen kultur eta nortasun **eskarien** oihartzun gune bihurtu zen, hasieratik, unibertsitate hori. Josu Zabaleta

Lau egun behar izan ditu medikuak bisita **eskariei** amore emateko. Koldo Izagirre

Gaixo eta errudunaren laguntza- **eskaria** . Elizen arteko biblia

Errusiak zitaltzat jo du azalpen **eskaria** . Berria - Mundua

Villenaveren politika salatzen du eta bigarren itzulirako ez duela boz **eskaririk** eginen jakinarazi du. Berria - Euskal Herria

Sufritu zuten guztiek ordain bat ez, baina barkamen **eskari** bat jaso dute estatuaren aldetik. Berria - Mundua

Zure hau da nire bizitzan egin didaten egiazko ezkontza- **eskari** bakarra. Antton Olano

Horrela saihesten zituen errebantxa **eskariak** -non irabazitako dirua berriro jokatu beharko zuen, alferrik eta nolanahi-. Anton Garikano

NASAko presidentearen dimisio **eskaria** onartu egin du Bushek. Berria - Gaiak

Jainkoari bedeinkazio- **eskaria** . Elizen arteko biblia

Bidaxuneko jaunak bere eskuz idatzirik egin zuen peoiarendako sari- **eskaria** . Aingeru Epaltza

5 (ekonomia eta merkataritza gaietan) salgai baten galdea egotea.

Eskaintza eta **eskaria** , hori da dena. Urtzi Urrutikoetxea

Hornitzaileen eta bezeroen tratuetan **eskariaren** eta eskaintzaren gorabeheretan suma daitezkeen estatistika-ereduak "goraldien" eta "beheraldien" segida batean adierazten ziren nabarmen. Iñaki Mendiguren

Eskaria eta eskaintza ere, aldi berean, prezioen arabera aldatzen baitira. Koro Navarro

Eskaintza **eskariari** moldatzeko. Berria - Kultura

Diruaren gorabeherek automatikoki orekatzen baititutze dibisen eskaintza eta **eskaria** . Koro Navarro

Saldo horren bariazio negatiboak automatikoki urritzen du diru-masa, eta, horren ondorioz, interes-tasek gora egiten dute, eta **eskariak** , ekoizpenak eta enpleguak berriz behera. Koro Navarro

Merkatariek egiten zizkieten **eskariak** eskulangileei, ematen zizkieten lehengaiak eta ziurtatzen zuten jardueren koordinazioa. Koro Navarro

Merkatu horiek, ororen gainetik, merkatarien beren topaleku ziren, eta ez azken **eskariak** (kontsumozkoak) eta lehen eskaintzak (ekoizpenak) bat egiten zuten lekua, tokiko merkatuen kasuan gertatzen zen bezala. Koro Navarro

Gaur egungo ikusmoldeek, aldiz, biziki azpimarratzen dute eskaintza-egiturak munduko **eskariaren** joeretara ongi egokitu beharra. Koro Navarro

Prezioen gorakadak ez du **eskaria** murriztuko, alderantziz, erreserbak metaraziko ditu, urritasunari aurrea hartzeko nahiz espekulatzeko. Koro Navarro

Eskariaren prezio-elastikotasunak **eskariaren** ehuneko hazkundea neurtzen du. Koro Navarro

10.000 aterkiren **eskaria** bidalita jaun agurgarri horrek ondo daki kapital handia geldiaraztera behartzen nauela, guztiz desagertu arte ibilgeturik geldituko dena, salgai horietatik urtean 5 baino gehiago saltzeko esperantzarik ez dut eta. Bego Montorio

Hiritarra ez da haserretzen **eskariagatik** , badakielako ematen duenari esker gordetzen duela geratzen zaiona. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire ezezkoa prezioaren desadostasuntzat hartuko zuen, ezen ia erdira jaitsi baitzuen hasierako **eskaria** . Anjel Lertxundi

6 (ekonomia eta merkataritza gaietan, izenondo eta izenlagunekin)

Mundu osoan **eskari** handia duten ondasunak ekoizteko eta esportatzeko. Koro Navarro

Nazio-merkatuetan **eskari** jarraituago baterako baldintzak sortzen. Koro Navarro

Ez baitira gai izan tokiko **eskarira** egokitutako ondasunak ekoizteko. Koro Navarro

Baztertu egiten da ekoizpena jatorrizko merkatuan; inportazioak aseko du bertako **eskaria** , atzerrian ekoizten duten enpresa nazionalen filialen bidez bereziki. Koro Navarro

7 (ekonomia eta merkataritza gaietan, hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Depresioen kausa **eskari** eskasia da, besteak beste, gizarte aberatsetan gero eta gehiago aurrezten delako. Iñaki Heras

Horrenbestez, **eskari** -inflazioa eta kostu-inflazioa bereizten dira. Iñaki Heras

Truke gurutzatuak, egin diren azterketek erakusten dutenez, ugariagoak izaten dira zenbat eta garapen-maila antzekoagoa eta handiagoa izan trukean parte hartzen duten herrialdeak, alegia, baldin **eskari** -egitura berdinak badituzte. Koro Navarro

Hutsa izan zen aldi horretan Japoniaren eta G7ko bere kideen arteko **eskari** -diferentziala. Koro Navarro

8 (ekonomia eta merkataritza gaietan, hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Zur, paper eta egur **eskaria** , mundu mailan, basoen produkzio iraunkorretik oso gora dago jada. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Merkatua gora doa, ontzi **eskaria** inoizko handiena da eta Koreako lantegien lehia bortitzak ez du zertan oztopo izan behar, lana «soberan» baitago orain. Berria - Harian

Nazioarteko konkurrentzia gogor baten testuinguruan, munduko lehengai- **eskaria** jaitsi egiten da, jardueraren erritmoari buruz. Koro Navarro

Diru **eskaria** gizarte jakin bateko biztanleek txanpon, billete edo banku gordailu gisa eduki nahi duten diru kopurua da. Iñaki Heras

Hiru kasu gerta daitezke, Portugalek Ingalaterrari egiten dion oihal- **eskariaren** elastikotasunaren arabera. Koro Navarro

Inportazio- **eskariaren** prezio-elastikotasuna. Koro Navarro

Hazkundea barne- **eskariaren** onurarako hobetzea, da erregimen horiek -zeinetarik batzuk demokratizazio-bidean baitaude- gaur duten erronka nagusietako bat. Koro Navarro

Petrolioaren mundu- **eskaria** eta eskaintza. Koro Navarro

Kapital- **eskariaren** hazkundea. Koro Navarro

Nazio- **eskariaren** sustapena. Koro Navarro

Marko- **eskari** gehiegizkoa orekatzeko. Koro Navarro

· Ekonomikoki jarduera apala da bertsolariena, eskaintza- **eskari** jokoa kanpoko esku-hartzerik gabe doitzen duena eta, beraz, eragile komertzial edo babes publikoarekiko menpekotasunik gabea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eskari (3); **barne eskari** (4); **bi eskari** (5); **bi eskari egin** (4); **egin zioten eskari** (3); **egindako eskari** (5); **energia eskari** (3); **eskari asko** (5); **eskari bakarra** (4); **eskari bat** (28); **eskari bat egin** (6); **eskari bat egingo** (4); **eskari bat egitea** (3); **eskari bera** (3); **eskari ditu** (3); **eskari egin** (6); **eskari egin dizkio** (3); **eskari egiten** (3); **eskari egiten badizu** (3); **eskari eta** (8); **eskari gehiago** (3); **eskari guztiak** (5); **eskari handia** (6); **eskari handiak** (3); **eskari hau** (8); **eskari honekin** (4); **eskari hori** (25); **eskari horiek** (6); **eskari horrek** (3); **eskari horren** (4); **eskari horri** (4); **eskari hura** (4); **eskari poltsa** (6); **eskari ugari** (3); **eskari zehatza** (4); **eskari zehatza egin** (3); **eskari zehatzak** (4); **eta eskari** (23); **euroko eskari** (3); **gero eta eskari** (3); **lehen eskari** (3); **milioi euroko eskari** (3); **nire eskari** (3); **otoitz eta eskari** (3); **zioten eskari** (3); **zuen eskari** (4); **zuri eskari** (3)

askatzeko eskaria (3); **aske uzteko eskaria** (7); **azken eskaria** (3); **baina eskaria** (3); **barne eskaria** (12); **baten eskaria** (3); **behera uzteko eskaria** (3); **bere eskaria** (10); **da eskaria** (4); **dio eskaria** (3); **diote eskaria** (3); **du eskaria** (10); **dut zure eskaria** (4); **dute eskaria** (14); **egin du eskaria** (3); **egin zuen eskaria** (5); **egindako eskaria** (9); **egiteko eskaria** (6); **emateko eskaria** (6); **eskaintza eta eskaria** (4); **eskaria aditu** (3); **eskaria asetzeko** (5); **eskaria aztertu** (4); **eskaria aztertzeko** (3); **eskaria baino** (4); **eskaria baztertu** (3); **eskaria baztertu zuen** (3); **eskaria berretsi** (9); **eskaria berretsi zuen** (4); **eskaria bertan** (3); **eskaria bete** (5); **eskaria egin** (70); **eskaria egin die** (4); **eskaria egin dio** (3); **eskaria egin du** (5); **eskaria egin dute** (3); **eskaria egin zien** (3); **eskaria egin zion** (8); **eskaria egin zuen** (16); **eskaria egin zuten** (5); **eskaria egiteko** (4); **eskaria egiten** (5); **eskaria entzuna** (3); **eskaria ere** (12); **eskaria ere egin** (3); **eskaria eta** (29); **eskaria eta eskaintza** (8); **eskaria eta eskaintzaren** (4); **eskaria ez** (5); **eskaria gutxitu** (3); **eskaria gutxitu egingo** (3); **eskaria handitu** (7); **eskaria handitu egingo** (3); **eskaria handituko** (4); **eskaria indartu** (4); **eskaria izan** (5); **eskaria jaso** (4); **eskaria koru** (4); **eskaria koru zuzendariarentzat** (4); **eskaria lortu** (3); **eskaria onartu** (16); **eskaria onartu du** (3); **eskaria onartu zuen** (3); **estradizio eskaria** (9); **eta eskaria** (25); **eta eskaria egin** (3); **euroko eskaria** (4); **gure eskaria** (5); **haren eskaria** (3); **honen eskaria** (6); **itzultzeko eskaria** (5); **jainkoak**

bere eskaria (3); **jaitsi dute eskaria** (11); **kentzeko eskaria** (4); **laguntza eskaria** (7); **lan eskaria** (4); **milioi euroko eskaria** (4); **nire eskaria** (9); **ofizialtasunaren eskaria** (3); **otoitza eta eskaria** (7); **petrolio eskaria** (5); **sartzeko eskaria** (6); **sartzeko eskaria egin** (4); **seaskaren eskaria** (4); **uzteko eskaria** (12); **uzteko eskaria egin** (7); **zion eskaria** (3); **zuen eskaria** (13); **zure eskaria** (9); **zure eskaria eta** (3)

barne eskariak (3); **barne eskariaren** (10); **bere eskariak** (3); **bere eskariari** (4); **boz eskaririk** (6); **boz eskaririk egin** (4); **egindako eskariak** (3); **egindako eskariaren** (4); **eginiko eskariari** (4); **eginiko eskariari erantzunez** (3); **eskaintza eta eskariaren** (3); **eskariak aintzat** (3); **eskariak behera** (4); **eskariak bete** (3); **eskariak egin** (4); **eskariak egiten** (3); **eskariak ere** (3); **eskariak eskaintza** (3); **eskariak eta** (8); **eskariak ez** (8); **eskariak ez dira** (3); **eskariak gora** (3); **eskariarekin bat** (3); **eskariaren arabera** (3); **eskariaren arteko** (4); **eskariaren eta** (15); **eskariaren eta eskaintzaren** (12); **eskariaren harira** (3); **eskariaren hazkuntza** (5); **eskariaren prezio** (3); **eskariari aurre** (3); **eskariari erantzunez** (11); **eskariari erantzuteko** (9); **eskariari kasu** (4); **eskariari uko** (3); **eskariei erantzuteko** (3); **eskariei eta** (4); **eskariei men** (3); **eskariei uko** (3); **eskaririk egin** (6); **eskaririk ez** (4); **eskariz egin** (4); **eskariz eta** (3); **eta eskariak** (11); **eta eskariaren** (9); **eta eskariaren arteko** (4); **eta eskarien** (3); **fiskalaren eskariz** (4); **fiskaltzaren eskariz** (5); **garzonen eskariz** (3); **gobernuaren eskariz** (5); **guggenheim museoaren eskariz** (3); **gure eskariak** (7); **langileen eskariak** (7); **munduko eskariak** (3); **munduko eskariaren** (7); **museoaren eskariz** (4); **ondasunen eskariaren** (3); **udalaren eskariz** (3); **zuen eskariak** (4)

---

eskarlata

1 *izond/iz* koloreez mintzatuz, gorri bizia. ik **gorrimin**.

Kimono **eskarlata** bat zerabilen, tolestura askorekikoa eta urrats ñimiñoak egitera behartzen zuena. Javi Cillero

Sugegorri beltza hondo **eskarlataren** gainean. Leihoren batetik kalera begiratu izan banu, txano **eskarlataz** jantzitako mutil bat ikusiko nuen, bere bota handiekin bidearen erditik urrats luzeak eginez zihoana. Agustin Otsoa

Eskuetan aizkorak zituzten Ekialdeko Gizakiak, Khandetik zetozen Variagtarrak, **eskarlataz** jantzitako Hegoaldeko Gizakiak eta Harad Urrunetik iritsitako begi zuriko eta mihi gorriko Gizaki Beltzak, trollen itxura zutenak. Agustin Otsoa

Lehen **eskarlatazko** jantziak erabiltzen zituena zarpailez jantzita zebilen orain. Askoren artean

Jesus Nazaretekoari ere, bere erregegoaz iseka eta burla egiteko, trapu **eskarlatazkoa** janzteaz batera, buruan elorri-arantzazko koroa eta kanabera eskuan ipini zizkioten. Pello Zabala

Kreta otxarraren sustraiekin eta **eskarlatarekin** nahastuz ere egiten dira purpurazko koloreak. Santiago Iruretagoiena

Urre, zilar, harribitxi, perla; liho, purpura, zeta, **eskarlata**. Elizen arteko biblia

2 ***eskarlata-kolore*** *izond* eskarlataren kolorekoa.

Azkazal **eskarlata-koloreak** zituen emakumeak. Koro Navarro

Musika-bandaren atzean, dozena pare bat soldadu egongo ziren, uniforme gorrimin **eskarlata-kolorea** jantzita, miresgarri. Mirentxu Larrañaga

Emakume haren atzapar **eskarlata**-kolore zorrotzek giza tragedia bezain sakona zen gutizia adierazten zuten. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
uniforme gorrimin eskarlata (4)

---

eskarlatina

iz eritasun infekziosoa, sukar altua, azaleko orban gorriak eta eztarriko mina ezaugarri dituena.

Herriko mutiko bat, **eskarlatina** izan ostean bizkortzen ari zela, gonbitoka hil zen itota irentsarazi zizkioten oilasko eta indioilar pusketengatik. Joseba Urteaga

Urtarrilean, **eskarlatina** zuela eta, ospitalean sartu zen Levi. Pablo Sastre

---

eskarmendu ik **eskarmentu**.

---

eskarmentagarri

*(orobat **eskarmentugarri**) izond/iz* **1** eskarmendua ematen duena.

Izango al da bilduma hau egungo umeen **eskarmentagarria**? Berria - Kultura

Ihes egiten saiatu zen eta denentzat **eskarmentugarri** izan zedin, denen aurreko heriotza eskaini zioten. Felipe Juaristi

2 (adizlagun gisa)

Eskarmentagarri hil zuten. Patziku Perurena

---

eskarmentatu,

eskarmenta(tu), eskarmentatzen **1** da *ad* eskarmentua hartu.

Bikote guztiak erabat sinetsita egoten dira berriz gertatuko ez dela; lehenengo aldia eta azkena izango dela; **eskarmentatu** direla. Luis Elberdin

Eskarmenta gaitezen eulien buruan, lezioak artuz al degun moduan. Patziku Perurena

2 du *ad* eskarmentua eman.

Honek, emaztea **eskarmentatu** nahian, denbora batez dorre batean giltzapetu zuen. Martin Anso

Freskotik zebiltzan, hango pagope ilun ezkutu haietan, Karloman harroaren gudariak harkaizpe haietan jipoitu eta **eskarmentatu** zituztenean. Pello Zabala

3 (era burutua izenondo gisa)

Goi-ordokiko artzain **eskarmentatuak** ere bazekien horren berri: *En marzo, el abrigo, nueces y pantrigo.* Pello Zabala

Gaur zaharra naiz, **eskarmentatua**. Joyce Kanpo Arazoetako funtzionarioa zen, **eskarmentatua**, hezia, ekinkorra eta lurrari lotua. Edorta Jimenez

Gobernu parlamentarioa egitea, horretarako klase ertain sendo, gaitu, oparo eta **eskarmentaturik** izan gabe. Iñaki Mendiguren

Laurak abandonatu ninduenetik oso **eskarmentatua** nengoen. Mikel Hernandez Abaitua

---

eskarmentu

*(orobat **eskarmendu** g.er.)* **1** *iz* zerbaitek eragiten dituen kalte edo alde txarretatik hartzen den ikasbidea; aritzeak ematen duen esperientzia.

Sexua forma ugaritan probatu du emakumeak, eta **eskarmentu** horretan pilatutako jakinduria zabaltzen du liburuan. Berria - Kultura

Hura ikustean, gogoeta egin nuen; hari begiratu eta **eskarmentu** hartu nuen. Elizen arteko biblia

Protestatzen ez zutèn agure-atsoak, bizitzan hamaika **eskarmentu** jaso eta jasan ondoren etsiak ziruditenak. Joan Mari Irigoien

Oilarrak, berriz, horrenbeste kukurruku jotzen duenez, ez ote du eguraldi aldaketari tankera hartzeko **eskarmentu** beharbeste? Pello Zabala

Hatzak tresnara egiteko besterik gabe, hatzen **eskarmentu** eta ikasbiderako hasi zen biolina joka. Felipe Juaristi

Besteek baino **eskarmentu** gehiago dut, nire adinean ia inork ez dakizkien gauzak bizi izan ditut. Josu Zabaleta

Uste dut oso **eskarmentu** gutxi duzula ezkontza-eskeak egiten. Antton Olano

1999an kargua hartu zuen senadoreak **eskarmentu** gutxi du atzerri politikan, Senatuan zerbitzu sekretuetaz arduratzen den batzordeko kidea izan arren. Berria - Mundua

Nire ugazabaren zorigaitza aita goizegi galdu izana zen, diputatua bera, eta bere **eskarmentu** gutxiagatik ez zuen bere jabegoa ondo administratzen asmatu, eta kiebra jota zegoen orain. Josu Zabaleta

Eskarmentu eza dute hutsune eta erne jardun beharko dute. Berria - Kirola

Eskarmentu [...]: Noizbait geureganatu genuen erokeria aspaldiko ezagun higuingarria dela ezagutzeko ahalmena ematen digun jakinduria. Xabier Olarra

Badakigu oraindik ez dugula behar bezainbeste **eskarmentu**. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ospe ona eta **eskarmentu** politikoa izan behar ditu. Berria - Harian

Izan ere, pertzepzio nahiz **eskarmentu** inpertsonalik ez dagoen moduan, ez dago oroimen inpertsonalik. Xabier Olarra

Eskarmentu txarra sobran duenari esplikazio lehorretan ekitea itsusia da oso; Bere ogibidea besterik ez dik menderatzen gizon horrek, baina **eskarmentu** handia dik eta ondo zekik zertaz ari den. Iñaki Segurola

Eskarmentu handia da edadekoen koroa, Jaunarenganako begirunea haien benetako harrotasun. Elizen arteko biblia

Ikuskatzaile horiek, horrenbeste arazo eta basakeria ikusita, jakintsuak izaten dira, **eskarmentu** handiko pertsonak. Karlos Linazasoro

Nik Richards izeneko morroi bihoztun, **eskarmentu** handiko hori jarriko diat hire txaluparen agintean. Juan Garzia

Prokuradorearen kotxe-gidaria, bidean antzeman zionez, **eskarmentu** handiko mutila zen: esku batekin bakarrik gidatzen zuen, eta bestearekin nagusiari heltzen zion, besoa atzerantz luzaturik. Jose Morales

Jokalari bikainak dituzte, **eskarmentu** eta kalitate handikoak. Berria - Kirola

Bera ez zen aditua, ez zuen **eskarmentu** handirik puruak erretzen; izan ere, hilabete gutxi batzuk baizik ez ziren pasatu zigarrotxotik purura igarotzeko hautua egin zuenetik. Jon Alonso

Lehena Murtziatik dator eta **eskarmentu** dezenteko jokalaria da. Berria - Kirola

Autoekin oso **eskarmentu** urria nuen arren [...] neu jarri nintzen gidari, aita nahiko nahasita baitzegoen. Alberto Ladron Arana

Ez genituen gauzak ongi antolatu, **eskarmentu** apurrekoak ginen, eta gero halako hondorioak ukan genituen. Koldo Izagirre

Galindezek nahiago izan zuen Brigadan, Valentzian abokatu baino, Justiziaren zerbitzari jardun izan zuen artean **eskarmentu** ederra hartu baitzuen. Edorta Jimenez

Raimundo Silvak, zuzentzaile-ogibidean zeukan **eskarmentu** luzeari esker, ez zuen besterik behar alde egin behar zuela konprenitzeko. Jon Alonso

Masailak gorriztatu zituen, ezpainak lapitzarekin margotu, baina begitartearen berezko kolorea erakusten zuen: **eskarmentu** luzeak erakutsi zionez, bere larruazal berez beltzaranak hobeki erakartzen zituen soldadu aliatuak. Patxi Zubizarreta

Apirilarekin fidaerraza izanen da kaletarra, baina baserritarrak **eskarmentu** handi eta negargarria zuen bere bizkar bildua. Pello Zabala

Orain arte ikusitako bideo guztien ostean nahiko **eskarmentu** badut lan hori azkar eta ondo egiteko. Berria - Kirola

Jakitatezko **eskarmentu** zaharraren baserriko ogi eta tremesa lehorra ahogozatu ditut. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aurpegi emango diot horrelakoari, **eskarmentu**-eredu bihurtuko dut besteentzat eta neure herritik botako; orduan jakingo duzue ni naizela Jauna. Elizen arteko biblia

Eskarmentu puxka bat pilatu duen pertsona adinekoak, horrek bai, begiratuko dio ilargiari nondik nora dabilen, mehetze bidean edo gizentzen doan, eta ez da berehalakoan deskuidatuko. Pello Zabala

Ibilera herrenkari dantzari bera zuen, behiala Odesan, gaztea eta errugabea nintzela, nire **eskarmentu** falta guztiagatik ere segundo frakzio batez atzeman niona. Matías Múgica

Hitza ematera behartu ninduen, konplitu ezin nuela jakin arren, nire fede onaz eta nire **eskarmentu**-faltaz baliatu nahi izan zuen, barrenik gabeko gizon amorala zen. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berak [...] ziur-aski ez du sekula izango gizarte-ezagupen normala taxutzeko gizarte-**eskarmentu** normalik. Xabier Olarra

Emakume bezero hura adindu xamarra eta bizi-**eskarmentu** handikoa zen, eta oso gogoko nuen. Joxan Elosegi

5 zentzagarria.

Eskarmentu nahikoa hartu nian behin, eta ez diat gehiagorik nahi. Sonia Gonzalez

Sinesgogorrei dagoeneko ezarritako zigorra izan bedi **eskarmentu** deboziorik gabekoentzat eta gehi biezaie ziurtasuna debotoei. Askoren artean

Azpi kastako gizon lotsagabe hura zigortzeko eta beste guztiei **eskarmentu** emateko, herri erdi-erdian zuhaitz bati lotu, oinazez josi eta bizirik erre zuten goi kastakoek. Gotzon Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

baina eskarmentu (10); **baino eskarmentu** (13); **baino eskarmentu gehiago** (3); **baino eskarmentu handiagoa** (5); **bere eskarmentu** (3); **du eskarmentu** (5); **ere eskarmentu** (5); **eskarmentu ederra** (6); **eskarmentu eta** (11); **eskarmentu eza** (6); **eskarmentu falta** (14); **eskarmentu gabea** (4); **eskarmentu gehiago** (12); **eskarmentu gehien** (4); **eskarmentu gisa** (3); **eskarmentu gutxi** (11); **eskarmentu gutxi dute** (3); **eskarmentu gutxien** (3); **eskarmentu gutxikoak** (6); **eskarmentu handia** (107); **eskarmentu handia dauka** (4); **eskarmentu handia du** (29); **eskarmentu handia duen** (5); **eskarmentu handia dute** (14); **eskarmentu handia duten** (9); **eskarmentu handia hartu** (4); **eskarmentu handia izan** (3); **eskarmentu handia pilatu** (4); **eskarmentu handia zuen** (3); **eskarmentu handiagoa** (33); **eskarmentu handiagoa du** (5); **eskarmentu handiena** (6); **eskarmentu handiena duena** (3); **eskarmentu handiko** (82); **eskarmentu handiko gizona** (7); **eskarmentu handiko jokalaria** (7); **eskarmentu handiko jokalariak** (7); **eskarmentu handiko musikaria** (3); **eskarmentu handiko pertsonak** (3); **eskarmentu handiko taldea** (7); **eskarmentu handikoa** (18); **eskarmentu handikoa da** (5); **eskarmentu handikoak** (7); **eskarmentu handirik** (6); **eskarmentu hori** (5); **eskarmentu luzea** (3); **eskarmentu txarra** (4); **eta eskarmentu** (49); **eta eskarmentu falta** (3); **eta eskarmentu handia** (10); **eta eskarmentu handiagoa** (3); **eta eskarmentu handiko** (6); **hain eskarmentu** (5); **mailan eskarmentu** (3); **zuen eskarmentu** (4)

askoko eskarmentua du (3); **badu eskarmentua** (11); **badute eskarmentua** (4); **baina eskarmentua** (7); **bere eskarmentua** (7); **bere eskarmentuari** (3); **da eskarmentua** (3); **duen eskarmentua** (6); **duten eskarmentua** (4); **emandako eskarmentua** (3); **ere eskarmentua** (3); **eskarmentua baliatu** (3); **eskarmentua behar** (5); **eskarmentua da** (3); **eskarmentua du** (18); **eskarmentua duen** (5); **eskarmentua duenak** (4); **eskarmentua dugu** (3); **eskarmentua dute** (8); **eskarmentua duten** (10); **eskarmentua emateko** (4); **eskarmentua erakutsi** (4); **eskarmentua erakutsi zuen** (3); **eskarmentua ere** (10); **eskarmentua eta** (26); **eskarmentua eta kalitatea** (5); **eskarmentua ez** (4); **eskarmentua falta** (8); **eskarmentua falta zaio** (3); **eskarmentua har** (4); **eskarmentua hartu** (10); **eskarmentua hartu zuen** (3); **eskarmentua hartzea** (4); **eskarmentua hartzeko** (13); **eskarmentua hartzen** (8); **eskarmentua izan** (4); **eskarmentua kontuan** (3); **eskarmentua lortu** (3); **eskarmentuak asko** (3); **eskarmentuak dio** (5); **eskarmentuak erakutsi** (6); **eskarmentuak eta** (5); **eskarmentuan oinarrituta** (3); **eskarmentuarekin eta** (3); **eskarmentuari esker** (6); **eskarmentutik ateratako** (3); **eskarmentuz dakit** (3); **eta eskarmentua** (27); **eta eskarmentua hartzeko** (4); **eta eskarmentuak** (6); **eta eskarmentuko** (3); **nire eskarmentua** (3); **pilatutako eskarmentua** (3); **urte askoko eskarmentua** (3); **urteko eskarmentua** (6)

---

eskarmentudun *izond* eskarmentua duena.

Stanley Chowder isil baina lagunkina, soropil moztaile **eskarmentuduna**, poker jokalari maltzur eta ping-pong jokalari aparta, amerikar film zaharren zalea, Koreako gerrako beteranoa, hogeita hamabi urteko alaba baten aita. Oskar Arana

Gidari-lana egiten ari zaion ikasle **eskarmentudun** batek. Anjel Lertxundi

Euskarazko prentsan kazetari **eskarmentudun** askorik ez zen, bideragarritasun ekonomikoa zalantzazkoa zuen. Berria - Euskal Herria

Clooneyk Bob Barnesen rola jokatu du, CIAko agente **eskarmentudun** batena. Berria - Kultura

Sosik gabe zegoen alegia, eta kartekin ateratzen zuen bizimaina, batzuetan jokalari dirudun eta **eskarmentudunen** begirale gisa, begibakarraren abantailak baliatuz, aurkarien kartak ikusi eta lehendik elkarren artean onarturiko keinuak eginez lagunari haien abisua emanez. Felipe Juaristi

Neskatxa haren aurrean, arinkeriaz, emakume heldu eta **eskarmentudun** gisa jokatu nuen. Ander Irizar

Normal jantzia zegoen, baina Beira Merkatariaren begi **eskarmentudunek** laster asko antzeman zuten mutil hark ez zeukala dirurik. Xabier Aranburu

Ni Larretxearen arrimuan ariko naiz, eta beste biak **eskarmentudunak** dira. Berria - Kirola

«Pertsona aparta da, **eskarmentuduna**», aitortu zuen Pitermanek, pasa den igandean. Berria - Kirola

Taldeak eskarmentua duela uste du, eta zentralak ere **eskarmentuduna** izan beharko lukeela. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jokalari eskarmentudunak (3)

---

eskarmentugabe *(orobat **eskarmentu gabe**)* **1** *izond* eskarmenturik ez duena.

Eskarmentugabea izaki, uste nuen maitale bat jestu xamur bat eginaz lasaitu eta adiskidetzea bazegoela. Matías Múgica

Gauza guztietan hain **eskarmentu gabea** ote naiz egiaz oraindik? arrisku orotatik salba dezakezula erakutsiz, nahiz eta **eskarmentu gabea** izan itsasoratzen dena. Josu Zabaleta

Ziudadelako armagizonak gazte eta **eskarmentu gabeak** ziren gutiz gehienak, eta adorez ez zebiltzan soberan. Aingeru Epaltza

2 ***eskarmentu gabeko*** *(orobat* ***eskarmentu bako****)*

Hogeita hamar urteetan aurrera zihoan orduan, eta emakume itsusi **eskarmentu gabeko** bat zen. Oskar Arana

Bi emakume bakar eta **eskarmentu gabeko**, jende gehienaren ustetan, jostun bihur daitezke, jantegi bat jar dezakete edo brodatze lanetan aritu. Ander Irizar

Eskarmentu bako langabeak: Ikerketa 2003ko datuekin egin du KESek eta, urte horretan, langabezian zeuden gazteen %35. Berria - Ekonomia

---

eskarmentugarri ik **eskarmentagarri**.

---

eskarmentutxo *iz adkor* eskarmentua.

Ez dela harritzekoa ere esan genezake, zeren gure aurrekoek Agorrila deitu bazioten Abuztuko hilabete honi, arrazoiren bat topatua zutelako, **eskarmentutxoren** bat baino gehiago nozitu zutelako izango zen. Pello Zabala

---

eskarniatu, eskarnia(tu), eskarniatzen du *ad* eskarnio egin.

demokrazia mendebaldarra **eskarniatzen** da; totalitarismoak eta Holokaustoak ez dute aipurik txikiena merezi; nazismoak ekarri duen gerra eta Alemaniaren txikizio totala "katastrofe" natural bat da Joxe Azurmendi

---

eskarniatzaile *(corpusean* ***eskerniatzaile*** *soilik) iz* eskarniatzen duena.

Elton-en ondotik jitekoak dira: Laurent Gerra **eskerniatzailea**, agorrilaren bostean, Baionako besten kari; eta agorrilaren hamabian Garou, Kebek-eko kantaria. Herria

---

eskarnio *(orobat* ***eskernio****) iz* iseka ankerra eta umilgarria.

Hala gelditu zen **eskarnio egin** ustea eskarniatua eta odol-isurle ustezkoa odolustua, lurrean etzanik. Joan Mari Irigoien

Eskernio güti alta, mintzajeari baratü. Herria

---

eskarola *iz* ortuko landarea, hosto handi eta kizkurrak dituena eta entsalalan jaten dena.

Urazek, **eskarolek**, txikoriek, zabalik eta lurrustelez zikin oraindik, beren bihotz bikainak erakusten zituzten. Karlos Zabala

Aldi batean **eskarola** baizik ez genuen jateko: **eskarola** harearekin, harearik gabe, patata purearekin, hutsik edo eltzekoan. Josu Zabaleta

Uraza edo **eskarola** mendi baten ondotik pasatu eta berriketa itzali bat entzuten zen sarritan. Karlos Zabala

---

eskarpia *iz* iltze mota, puntaren kontrako aldea angelu zuzenean tolestua duena.

- **Eskarpia** batzuk. Iban Zaldua

---

eskarpin *(orobat* ***eskarpiñ*** *g.er.) iz* zapata mota soila, oin gainaren zati handi bat estali gabe uzten duena.

Gure aiton-amonen hanketakorik preziatuena, **eskarpina**, batez ere herrirako erabili ohi zuen bordariak, eta kaletarrak berak, jaiegun edo mezarako bakarrik askotan. Patziku Perurena

Galtzerdi zaharrez edo bartanez estalitako oin misteriotsu haiek azaldu eta beheko suan berotuxe ondoan, berriz atzera **eskarpin** xaharren batzuk txinelka sartuz estali arteko tartetxoa erne aprobetxatuz, hantxe egoten ginen harriturik. Patziku Perurena

Charronek ez zuen frackik soinean, cutaway bioleta bat baizik, eta sedazko alkandora arrosa zurbila, eta oinetan **eskarpin** txarolatuak. Matías Múgica

Lekuan bildutako lagunetatik bi neoprenozko urpekari jantziz zeuden errekaren bazterreko harri borobil banatan eserita, oinetan jantzita zituzten **eskarpinak** errekan sartuta. Hasier Etxeberria

---

eskarpin *(orobat* ***eskarpiñ*** *g.er.) iz* zapata mota soila, oin gainaren zati handi bat estali gabe uzten duena.

Gure aiton-amonen hanketakorik preziatuena, **eskarpina**, batez ere herrirako erabili ohi zuen bordariak, eta kaletarrak berak, jaiegun edo mezarako bakarrik askotan. Patziku Perurena

Galtzerdi zaharrez edo bartanez estalitako oin misteriotsu haiek azaldu eta beheko suan berotuxe ondoan, berriz atzera **eskarpin** xaharren batzuk txinelka sartuz estali arteko tartetxoa erne aprobetxatuz, hantxe egoten ginen harriturik. Patziku Perurena

Charronek ez zuen frackik soinean, cutaway bioleta bat baizik, eta sedazko alkandora arrosa zurbila, eta oinetan **eskarpin** txarolatuak. Matías Múgica

Lekuan bildutako lagunetatik bi neoprenozko urpekari jantziz zeuden errekaren bazterreko harri borobil banatan eserita, oinetan jantzita zituzten **eskarpinak** errekan sartuta. Hasier Etxeberria

---

eskas *(orobat* ***ezkas*** *g.er.)* **1** *izond* urria; neurria ozta betetzen duena; behar adina ona edo egokia ez dena.

Aldian behin oparitxoak egiten zizkioten, ematen zioten soldata **eskasa** zuritze aldera. Anjel Lertxundi

Erabaki ezazue presaka, oraindik geratzen zaizuen adimen **eskas** horrekin. Agustin Otsoa

Eguraldi **eskas** honekin, etxean onena. Txillardegi

Pertsiana erdi erorien artetik, argi **eskas** bat baizik ez zen iragazten ostatutik kanpora. Aingeru Epaltza

Inork ezin esan Hanna emakumetasunaren aldetik **eskas**-edo denik. Joxe Austin Arrieta

Asko bildu zuenak ez zuen sobera, ez eta gutxi bildu zuenak ere **eskas**. Elizen arteko biblia

Barregarria iduritu zait beti hiri **eskas** honetako bizilagun bati baino gehiagori hiritar izateak sorrarazten dion konplexu ergela. Aingeru Epaltza

Segundo **eskas** batez gelditu zen, zertan ari nintzen ikusi zuen, eta gure begiek topo egin zuten. Koro Navarro

Atetik oherako bidea segundu **eskas** batean egin zuen eta bertan sartu zen. Aitor Arana

Minutu pare **eskas** batean edonor betiko hondoratzeko modukoak esan zizkidaten. Karlos Linazasoro

Astebete **eskas** aurretik, Euskal Herriko Klimatologia Meteorologia Elkartea martxan ipintzen genuen, erbi-lanak egin zitzan. Pello Zabala

Hilabete **eskas** bat oraino maiatzaren 29ra heltzeko. Herria

Ez zen oso ekintzailea, eta ikasketa kontuan etekin **eskas** samarra ateratzen zuen. Juan Garzia

Badakigu ordea, eskarmentuak halaxe erakutsirik, askatasuna gauza **eskas**, badaezpadako eta are txarren-txarrena ere izatera irits litekeela gure mundu xelebre honetan. Iñaki Segurola

Fluoreszente urriek eskaintzen duten argitasun **eskas** eta fantasmagorikoan murgiltzea. Iban Zaldua

Ez nau zuen bizimodu **eskasaren** kezkak ukitzen. katilu bete salda bero hustuta, neure hezur unatuei behea jotzera utzi nien ganbera itsuko ohatze **eskasean**. Hasier Etxeberria

Krudela, zeren alusio bat baitzeraman bere baitan, ziur aski faltsua eta nolanahi ere erruki **eskasekoa**. Juan Garzia

Gogo txarrez egiten dut lana, zalantzaz, damuz eta giza berotasun **eskasez**. Juan Garzia

Gauzekiko atxikimendu **eskasa** izan baitut beti nik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain gara txiki eta **eskas**! Hasier Etxeberria

Gauaz lo **eskasa** egiten nuen. Aingeru Epaltza

Ximurrak esku artean zeukan freskagarri kaloriaz hustua tentazio **eskasa** zen niretzat. Aingeru Epaltza

Badakit nik eredu honen bideragarritasuna **eskasa** dela, gaur egungo irakasle gehienak gaztelaniaz bakarrik moldatzen direlako. Pello Salaburu

Ximurrak imajinazio **eskasa** zuen. Aingeru Epaltza

Ez duk hire sentimenduak menderatzen jakin, eta sentimendua, horrela, bakarka, lagun **eskasa** duk. Bernardo Atxaga

Herriaren hizkuntza baita yiddisha, tradizio idatzi **eskasa** duena, hizkuntza pobrea, haur eta emakumeena. Koro Navarro

Gutunak gogorrak eta zorrotzak dira; baina bera itxura kaxkarreko gizona da eta hizlari **eskasa**. Elizen arteko biblia

Hatzak luzeak; azazkalak irtenak; zangoak meheak; oinak motzak; azala leuna; haragia **eskasa**; jantzia latza, loa oso laburra, eskua txit zabala. Askoren artean

Langile asko, gainera, emakumezkoak izaten ziren, eta soldata **eskasak** ordaintzen zitzaizkien. Koro Navarro

Ohi baino arazo gehiago izan zituen Tauk Breogan menperatzeko; joko **eskasa** egin zuen. Berria - Kirola

Obra onak daude, talentu ertaineko idazleek idatziak; eta obra **eskasak** daude, talentu gutxiko idazleek idatziak. Ana Urkiza

Aita baino sasoi **eskasagokoa** izango zen, apika, baina dena zuen zain eta gihar, dena zen gordin. Anjel Lertxundi

Edozein herrialdetan, zientzia horren mendeurrena ospatzeko antolaturiko elkarretaratze bat omenaldi **eskastzat** joko zen. Juan Garzia

Definizioa **eskasa** zen, ergela ez esateagatik, eta areago estutu nituen nire burmuinak. Bernardo Atxaga

Lan baldintzak gero eta **eskasagoak** izaki, ia erabatekoa delako alor horretako jauntxoen zapalketa. Joxerra Garzia

Etxebizitza guztiz **eskas** baina guztiz merke batzuk bazirela han. Xabier Mendiguren Elizegi

Bosgarren solairuan zegoen neure bizitoki **eskaseraino** igotzen lagundu nuen Mairos eta argipean, neskaren begitarteko ubelak zenbatzen ahal nituen, ubelak eta odol idorra zerien urrakoak. Itxaro Borda

2 (zenbakiekin luzera edo denbora neurrietan)

Bazter batetik bestera bi kilometro **eskas** daude eta ibaiaren erdian dago muga. Berria - Mundua

22 urte **eskas** ditu, baina izaera handiko atezaina da. Berria - Kirola

Sanjoanak aurreko bere goizaldi goizenekotik 5 minutu **eskas** atzeratu ditu bakarrik: 5 minutuz laburtu da goiza, beraz. Pello Zabala

Are gehiago harritu ninduen minutu **eskas** bat geroago atea zabaldu eta Bohusch presaka sartu zenean, zuzenean nigana. Urtzi Urrutikoetxea

Dukea jauregiratu baino bi hilabete **eskas** lehenago. Joan Mari Irigoien

Bada urtebete **eskas**-edo, neure kabuz hasi nintzela handitzen eta hedatzen, inongo kontrolik gabe. Josetxo Azkona

Bi ordu **eskas** iraun zuen bilerak. Joxe Austin Arrieta

Kolpe berean, txantxangorria xalto batean jaisten da nire aurrera, metro **eskas** bat aurrean, ia hankapean. Pello Zabala

Bi metro **eskas** dira, pertsona baten altura gehienez, baina berarengana iristen naizenerako, konorterik gabe datza hondarretan. Joxe Austin Arrieta

· Uztailerako 148 "garraio" egin ziren, eta 100 mila judu **eskas** gelditzen dira Hungarian (825 mila zeuden gerra aurretik). Urtzi Urrutikoetxea

Egun bete **eskas** iragan duk altxatu eta lehenengo aldiz atera hintzenetik. Agustin Otsoa

3 (adizlagun gisa)

Atletico Madril, aldiz, **eskas** aritu zen, ideiarik gabe, pattal, oso pattal. Berria - Kirola

Oso **eskas** ari dituk. Pedro Alberdi

Badakigu badirela beste horrenbeste, poxi bat **eskas** dabiltzanak hizkuntza kontuetan. Pello Salaburu

Lehenago martxoari ere urria deitu baitzioten, ordurako bai aziendak eta bai pertsonak nahikoa urri eta **eskas** ibiltzen zirelako, gerraosteko hartan batik bat. Pello Zabala

Berak hartu zuen nire hezkuntzaren ardura, eta **eskas** nenbilela ulertarazi. Juan Garzia

Ordurako famatua zen Thomas literatura zirkuluetan, baina diruz **eskas** zebilen, are **eskasago** familia ugaltzean. Koro Navarro

Armetan **eskas** nengoen, ordea, eta eskura nituen apurrez profitatu behar. Aingeru Epaltza

Mendi hau Jerusalemdik hurbil dago, kilometro batera **eskas**. Elizen arteko biblia

· Aitona Nikolas gero eta eriago eta ezinduago zegoela, gero eta hutsago eta **eskasago**. Joan Mari Irigoien

4 ***eskas izan*** da *ad* falta izan; faltan izan.

Erreka zolan, behar orduan gordetzeko lekuak ez ziren **eskas**. Eneko Bidegain

Ogia **eskas** denean, menpekoen gari-sailak erretzen dituztenak. Anjel Lertxundi

Hire herrian belarra **eskas** izango ahal duk luzaro! Agustin Otsoa

Norbait **eskas** zela nehork ez zuen ikusi. Michel Oronoz

Hirira itzultzeko **eskas** ziren kilometroetako seinaleak zenbatzeari eman nion, ez lokartzearren. Aingeru Epaltza

Zeure zerbitzura duzun adiskideak jakin du izkiriatzeko behar duzun guztiaren **eskas** zarela, eta hornitu zaitu dagoeneko. Jon Muñoz

Izuaz ordezkatu nuen bada **eskas** zitzaidan sentikortasuna. Jon Muñoz

Adiskideak Mai aipatua zidan, baina nitaz osoki segur agertzeko elementu anitz **eskas** zitzaizkidan. Itxaro Borda

Aita urtebete **eskas** dela hil zitzaigun. Jon Alonso

Baina ene asmoa nekez konplitzen zen, eta kasik beti zen zerbaiten **eskas**. Joan Mari Irigoien

Gauza askoren, asko-askoren **eskas** gara hemen, aspalditik, eta zuk bezalaxe falta ditut nik ere. Josu Zabaleta

Bazen lan-mahai lauzatu bat, beirontziteria gutxi bat, erreakziogaiak zeuzkaten hogei bat flasko, hautsa ugari, amarauna ugari, argia **eskas** eta hotza abondo. Juan Garzia

Nola pizten ahal ziren suteak, egurra hain **eskas** zen uharte honetan? Itxaro Borda

Badu bospasei urte segurik lehen arrangurak agertu zirela Frantzia behere hortan, medikuak **eskas** zirela eskualde batzuetan. Herria

Beste leku askotan lana **eskas** eta gauza beharrenak falta. Herria

· Medikuak **eskas** Frantzian? Hori ez da haatik arras hola. Herria

Hiru **eskas** gehiengo osoarentzat. Herria

Ehun urte, hiru egun **eskas**. Herria

5 (du aditz gisa)

Eskas duzuna, huraxe nahi. Gotzon Garate

Jatekoa **eskas** zuten, sosa ere bai. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez zuen lana **eskas**. Aingeru Epaltza

Eta, zer du ba neskak **eskas**? Patxi Zubizarreta

Kafea, txokoleta eta sukrea **eskas** ditinagu. Itxaro Borda

Beste asmazio guziak sobran ditu, edo **eskas**. Printze izatea baizik ez du **eskas**. Patziku Perurena

Bertzerik zen bertze gehienek **eskas** zutena. Aingeru Epaltza

Ikuskizunak, hortaz, trinkotasuna zuen **eskas**. Aingeru Epaltza

Medikuak ez zuen konprenitzen gauaren biluzia eta desesperantza **eskas** nituela jadanik. Itxaro Borda

Segida segurtatua dela frogatzeko Aizpuruak argumentuak ez ditu **eskas**. Berria - Kultura

Urrats bat baizik ez nuen **eskas**, psikiatrek depresio deitzen duten gogoaren beheraldiaren ataria zeharkatzeko. Aingeru Epaltza

Gaur egun, goiz-beiletako bisitari ditudan irudi edo burutapenek **eskas** dute sofistikazioa, lehenagokoen aldean. Aingeru Epaltza

Bertzerik zen bertze gehienek **eskas** zutena. Aingeru Epaltza

Gizakiek esperientziaz ikasiko dute, bizkitartean, elkar lagunduz dituztela eskuratuko biziki errazkiago **eskas** dituztenak eta beren indarrak batuz baizik ez dituztela nonahi mehatxatzen dituzten arriskuak saihesten ahalko. Piarres Xarriton

Zure gutuna baizik ez nuen **eskas** hari kasu eginarazteko. Jon Muñoz

Etorria **eskas**, sigi-sagaka jarraitu nuen lerro zurietan barna, jadanik idatzitakotik idaztekoa ekarri nahirik. Aingeru Epaltza

Ohe zabalegiaren hedaduran, Joana eta Mai aldizka **eskas** nituela konturatzen nintzen. Itxaro Borda

Baroja ez zen ezerekin ase, eta ez zekien egiatan zer zuen **eskas** izatasun bete-betea eskuratzeko. Josu Zabaleta

· Badakizu zer esan zidan kapitainak konpainian soldadu bat **eskas** zeukala ikusi zuenean? Koldo Izagirre

Beti baziren berantiarrak, honek zapata bat **eskas**, hura zakurik gabe, edo burukoa ahantzia, nik dakita. Marzel Etxehandi

6 (izen gisa) gabezia, falta. ik **ments 3**; **eskasia**.

Herriko etxeak kontsulta handi bat egin du jakiteko tokiko jendeak nola ikusten duen plaza hori, zer abantail eta zer **eskas** kausitzen dion. Herria

Seme bat, anaia bat, lagun bat ala aita baten galtzea dorpea izaiten da, ez da hitzik **ezkasa** ordaintzen duenik, bainan gelditzen da Herri osoaren sustengua doluaren eztitzaile. Herria

Dena den, herriak eta apezpikuak baimendurik, primadera egun batez, joan zen bakarrik, proosionerik gabe laguntzeko, zakurrik gabe ere, eta hori anitzek **eskas** bat bezala senditu zuten. Michel Oronoz

Eskas haundi bat beraz denentzat eta partikularzki “Ixtaklok” batasunarentzat! Herria

Deusetan ez zituen baliatuko bere teologia jakitate zabalak artzain eta laborari herri hartan, eta maila goragoko elkarrizketen **eskasa** sendi zuen. Elena Touyarou

Artean argiki lo **eskasez** eta mafrundi nengoen. Itxaro Borda

Gehienez ere kexuzko mandaturen bat bidaltzen dik gaizki esaka, helbidearen **eskasez** hala ere iristen ez zaiana. Juan Garzia

7 (izen gisa hitz elkartuetan)

Baina lan-**eskasak** hil du ene herria. Janbattitt Dirassar

Apez **eskasa** erraten du hemen bainan zenbait egun berantago aipatzen du kolejio berri baten sortzea hain zuzen apez anitz badelakotz. Xipri Arbelbide

Leiho berri batzu ideki behar izan zituzten aire **eskasaren** gatik jendea ardura alditxartzen zelakotz. Michel Oronoz

Ontzia konponduta, mareajera itzuli baino lehen, Areitiok marinelaren **eskasa** salatu zuen. Koldo Izagirre

Gauzen **eskasak** emaiten zidan nekeziak halako kontentu batez betetzen ninduen, barnetik atera behar nuen indarrak gisa batez aberasten baininduen. Piarres Aintziart

Gorputzaren lasaitasun **eskasak** ez dit izpiritua fleitean uzten eta egiazki so egiteko arta pizten. Ikusiz nagusia, bekoz beko, zein sanoki mintzatzen zitzaidan, barkatu bezala nion bere jendetasun **eskasa**. Piarres Aintziart

Lo **eskasak** enerbaturik, Nina erdi oihuka ari zitzaion bere amatxiri. Ramuntxo Etxeberri

6 *eskas gertatu*

Hiriko arbolak **eskas gertatu** ziren, hainbertze urkaturendako. Aingeru Epaltza

Putzu kalean ama **eskas gertatzean**, bera bihurtu duk -arreba, alegia- gu guztion etxekoandre. Txillardegi

Hitzezko deskribapen oro **eskas gertatuko** da, eta ez da bat bestea baino egokiagoa izango: balia bekit, bada, honako hauxe. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldetik eskas (5); **aste eskas** (8); **astebete eskas** (10); **bat eskas** (25); **baten eskas** (6); **beti eskas** (7); **bi hilabete eskas** (11); **bi minutu eskas** (4); **bi urte eskas** (12); **bizitegiak eskas** (6); **bost minutu eskas** (6); **da eskas** (5); **deus eskas** (4); **dira eskas** (6); **dirua eskas** (6); **ditu eskas** (5); **duela hilabete eskas** (5); **dute eskas** (7); **edo eskas** (6); **egun eskas** (13); **erdi eskas** (10); **ere eskas** (22); **eskas aritu** (19); **eskas aritu zen** (7); **eskas aritu ziren** (4); **eskas atera** (4); **eskas bat** (37); **eskas bat bezala** (5); **eskas batean** (10); **eskas baten** (9); **eskas batera** (9); **eskas batzuk** (4); **eskas behar** (7); **eskas behar izan** (4); **eskas da** (11); **eskas dela** (12); **eskas den** (10); **eskas dira** (12); **eskas direla** (11); **eskas diren** (5); **eskas ditu** (13); **eskas ditugu** (4); **eskas du** (7); **eskas duen** (7); **eskas dute** (6); **eskas duten** (5); **eskas egin** (11); **eskas egon** (4); **eskas eman** (5); **eskas eta** (27); **eskas ez** (5); **eskas falta** (51); **eskas falta dira** (6); **eskas falta direnean** (6); **eskas falta zirela** (4); **eskas falta ziren** (4); **eskas falta zirenean** (14); **eskas gehiago** (6); **eskas gehiago irabazi** (6); **eskas gelditzen** (4); **eskas geratzen** (9); **eskas hori** (14); **eskas horrek** (4); **eskas horren** (4); **eskas ibili** (5); **eskas igaro** (4); **eskas iraun** (14); **eskas iraun zuen** (7); **eskas izan** (10); **eskas izanen** (13); **eskas izanez** (6); **eskas izango** (6); **eskas jokatu** (8); **eskas lehenago** (6); **eskas samar** (6); **eskas samarra** (4); **eskas sentitzen** (4); **eskas zela** (6); **eskas zen** (7); **eskas ziren** (6); **eskas zituen** (6); **eta eskas** (13); **euro eskas** (4); **ez dira eskas** (6); **ez zen eskas** (5); **ez ziren eskas** (5); **gauza guti eskas** (9); **gol eskas** (8); **guti eskas** (14); **hain eskas** (11); **halako eskas** (5); **hamar minutu eskas** (7); **hilabete eskas** (62); **hilabete eskas falta** (11); **hiru eskas** (4); **hiru hilabete eskas** (6); **hiru minutu eskas** (4); **hiru urte eskas** (5); **hori eskas** (8); **jardunaldi eskas** (6); **jardunaldi eskas falta** (6); **kilometro eskas** (11); **lana eskas** (4); **langileak eskas** (4); **laurden eskas** (4); **lurra eskas** (4); **medikuak eskas** (5); **metro eskas** (11); **minutu eskas** (39); **minutu eskas bat** (5); **minutu eskas falta** (15); **nuen eskas** (4); **ordu eskas** (11); **ordu laurden eskas** (4); **ordubete eskas** (8); **ordubete eskas iraun** (4); **oso eskas** (9); **partida eskas** (4); **puntu eskas** (5); **segundo eskas** (13); **segundo eskas falta** (5); **tokia eskas** (7); **ura eskas** (4); **urte eskas** (40); **urte eskas ditu** (6); **urtebete eskas** (17); **zen eskas** (5); **ziren eskas** (5); **zuen eskas** (6)

antolakuntza eskasa (4); **axola eskasa** (4); **balio eskasa** (4); **borondate eskasa** (5); **da eskasa** (4); **defentsa eskasa** (7); **demokratiko eskasa** (4); **denbora eskasa** (4); **denboraldi eskasa** (4); **egoera eskasa** (6); **emaitza eskasa** (5); **eraginkortasun eskasa** (7); **ere eskasa** (4); **errespetu eskasa** (6); **eskasa bada** (5); **eskasa da** (32); **eskasa dauka** (5); **eskasa dela** (45); **eskasa dela esan** (4); **eskasa dela eta** (6); **eskasa dela salatu** (4); **eskasa delako** (4); **eskasa du** (8); **eskasa dute** (8); **eskasa dutela** (7); **eskasa edo** (4); **eskasa egin** (41); **eskasa egin zuen** (13); **eskasa egin zuten** (5); **eskasa egiten** (8); **eskasa eman** (14); **eskasa eman zuen** (4); **eskasa ematen** (6); **eskasa erakutsi** (6); **eskasa ere** (9); **eskasa eta** (38); **eskasa ez** (9); **eskasa hobetzeko** (5); **eskasa ikusi** (4); **eskasa ikusita** (5); **eskasa irabazi** (24); **eskasa irabazi eta** (6); **eskasa irabazi ondoan** (5); **eskasa irabazita** (4); **eskasa iritzi** (5); **eskasa izan** (73); **eskasa izan da** (12); **eskasa izan du** (4); **eskasa izan zela** (5); **eskasa izan zen** (18); **eskasa izan zuen** (4); **eskasa izango** (6); **eskasa izatea** (5); **eskasa izaten** (5); **eskasa jokatu** (4); **eskasa nabarmendu** (5); **eskasa salatu** (11); **eskasa salatzeko** (4); **eskasa utzi** (4); **eskasa uzten** (6); **eskasa zela** (11); **eskasa zen** (19); **eskasa zuen** (9); **eta eskasa** (16); **gaitasun eskasa** (5); **hain eskasa** (6); **hartze eskasa** (9); **hartze eskasa izan** (4); **hartzea eskasa** (7); **hartzea eskasa izan** (5); **informazio eskasa** (8); **irudi eskasa** (16); **irudi eskasa hobetzeko** (4); **itxura eskasa** (14); **joko eskasa** (13); **joko eskasa egin** (4); **jokoa eskasa** (6); **kalitate eskasa** (10); **konfiantza eskasa** (5); **kopuru eskasa** (5); **laguntza eskasa** (8); **lan eskasa** (21); **lan eskasa egin** (6); **leku eskasa** (8); **maila eskasa** (18); **maila eskasa eman** (4); **nahiko eskasa** (9); **oihartzun eskasa** (4); **oso eskasa** (41); **oso eskasa da** (7); **oso eskasa dela** (5); **oso eskasa egin** (6); **oso eskasa izan** (4); **parte hartze eskasa** (7); **parte hartzea eskasa** (7); **partida eskasa** (16); **partida eskasa egin** (8); **politiko eskasa** (5); **sasoi eskasa** (4); **talde eskasa** (6); **zigor eskasa** (14); **zigor eskasa irabazi** (9)

baino eskasagoa (11); **baino eskasagoa izan** (4); **baino eskasagoak** (6); **baino lan eskasagoa** (4); **baino maila eskasagoa** (5); **eskasagoa da** (7); **eskasagoa duela** (4); **eskasagoa egin** (6); **eskasagoa izan** (11); **eskasagoa izan zen** (4); **eskasagoak izan** (4); **eta eskasago** (5); **eta eskasagoa** (7); **eta eskasagoak** (5); **ezin eskasagoa** (8); **gero eta eskasagoa** (5); **gero eta eskasagoak** (4); **lan eskasagoa** (4); **maila eskasagoa** (6); **talde eskasagoa** (4)

espetxe zigorra eskatzen (19); **eta arren eskatzen** (20); **eta barkamena eskatzen** (10); **eta berriro eskatzen** (10); **eta eskatzen** (36); **etena eskatzen** (10); **euro eskatzen** (20); **ez dizut eskatzen** (16); **ez du eskatzen** (14); **ez dugu eskatzen** (14); **ez dut eskatzen** (10); **ez zuen eskatzen** (9); **ezer eskatzen** (19); **gauza bakarra eskatzen** (11); **gauzak eskatzen** (8); **gehiago eskatzen** (83); **gehiago eskatzen du** (10); **gehiegi eskatzen** (24); **gelditzeko eskatzen** (10); **gizarteak eskatzen** (32); **gizarteak eskatzen duen** (8); **gobernuari eskatzen** (10); **guk eskatzen** (14); **gutxi eskatzen** (11); **gutxiago eskatzen** (10); **guztiei eskatzen** (10); **hala eskatzen** (61); **hala eskatzen duelako** (8); **handia eskatzen** (34); **handia eskatzen du** (11); **handiagoa eskatzen** (22); **handiagoa eskatzen du** (10); **handiak eskatzen** (9); **hartzea eskatzen** (27); **hartzea eskatzen du** (10); **hartzeko eskatzen** (36); **hau eskatzen** (10); **honek eskatzen** (9); **hori eskatzen** (46); **horixe eskatzen** (13); **horregatik eskatzen** (17); **horrek eskatzen** (25); **horrek eskatzen du** (8); **horrela eskatzen** (9); **igoera eskatzen** (13); **igoera eskatzen dute** (8); **iritzia eskatzen** (17); **itzultzeko eskatzen** (16); **izatea eskatzen** (55); **izatea eskatzen du** (18); **izateko eskatzen** (16); **izenean eskatzen** (8); **jainkoari eskatzen** (9); **jartzea eskatzen** (9); **jartzeko eskatzen** (15); **joateko eskatzen** (9); **jokatzea eskatzen** (10); **jokatzeko eskatzen** (15); **justizia eskatzen** (12); **kartzela zigorra eskatzen** (11); **kentzeko eskatzen** (10); **konpromisoa eskatzen** (11); **kontuak eskatzen** (12); **laguntza eskatzen** (70); **lana eskatzen** (11); **lanak eskatzen** (9); **legeak eskatzen** (21); **legeak eskatzen dituen** (11); **limosna eskatzen** (11); **maitasunagatik eskatzen** (9); **mesedez eskatzen** (27); **mesedez eskatzen dizut** (17); **neurriak eskatzen** (12); **nola eskatzen** (10); **onartzeko eskatzen** (11); **ordaina eskatzen** (11); **parte hartzea eskatzen** (11); **politikoa eskatzen** (9); **sartzea eskatzen** (10); **soilik eskatzen** (9); **soldata igoera eskatzen** (8); **su etena eskatzen** (10); **uzteko eskatzen** (70); **uzteko eskatzen du** (8); **uzteko eskatzen duen** (10); **zer eskatzen** (63); **zer eskatzen diozu** (10); **zera eskatzen** (12); **zerbait eskatzen** (13); **zergatik eskatzen** (13); **zigorra eskatzen** (39); **zigorra eskatzen du** (13); **zuen eskatzen** (12)

barkamena eskatzera (12); **bat eskatzera** (19); **eskatzera etorri** (12); **eskatzera joan** (17); **gehiago eskatzerik** (20); **laguntza eskatzera** (13); **limosna eskatzera** (9)

---

eskatzaile **1** *iz* eskatzen duen pertsona.

Diruak, beste edozein ondasun edo zerbitzuk bezala, erosle edo **eskatzaile** batzuk ditu eta saltzaile edo eskaintzaile batzuk. Iñaki Heras

Gai jakin bati buruzko txosten bat eskatu zioten behin jakintsu bati, eta hark hirurehun orrialdeko lana bidali zien **eskatzaileei**, honako ohar honekin batera: "Barka iezadazue, baina ez dut astirik izan laburragoa egiteko". Joxerra Garzia

SAren ustez, dekretuak ezartzen zituen baldintza burokratikoak «erabat murriztaileak» ziren, eta horrek eragin du **eskatzaileen** bi heren pasa laguntzarik jaso gabe geratzea. Berria - Euskal Herria

Babes ofizialeko etxebizitzak udaletako **eskatzaileen** zerrendaren arabera zozketatuko dira, nahiz eta Etxebiden izena emanda direnek ere parte hartzea izango duten, dagokion udalarekin hitzarmena sinatuz gero. Berria - Euskal Herria

Orain artean Gipuzkoan ia zortzi hilabete itxaron behar izaten zuten **eskatzaileek** egokitasun ziurtagiria jasotzeko. Berria - Harian

Auzitegiak soilik egiazta dezake Espainiako agintari judizialek errefusatu egin zituztela **eskatzaileek** frogak aurkezteko eginiko eskaera guztiak. Berria - Mundua

Etorkinak izan dira **eskatzaileen** %25 eta, ildo horretatik, Iralak nabarmendu zuen aurrezkiak atzerrira bidaltzeko programa jarriko dutela abian laster. Berria - Ekonomia

Rotterdamgo Hitzarmenak nekazaritza jasangarria bultzatzen du, eta **eskatzaileei** arrisku gutxien duten produktuak hautatzeko aukera eskaintzen die. Berria - Gaiak

Aurrerantzean etxeko informazio-emailerik izango ez denez, beste iturri baten bila abiatu beharko du **eskatzaileak**. Edorta Agirre

Geure gustuko idazle bat eta hari loturiko hiria hartu behar genituen gaitzat; adibidez -adibideak ematen zizkigun **eskatzaileak** bere gutunean, bestela nahasi samarra izan baitzitekeen kontua lehenengo begi-kolpean ulertzeko-, Kafka eta Praga, Pessoa eta Lisboa, Joyce eta Dublin. Xabier Mendiguren Elizegi

Erroldako arima guztiak, ez bakarrik hilzorian edo hiltzear edo, **eskatzaileak** oker dioen bezala, hilik daudenak, baizik eta guztiak, den-denak, bahiturik daude. Jose Morales

Egia esan, arrazoi zuen **eskatzaileak**; orain, ordea, ez dago bide txarreko dirurik onartzen duenik: bulegoburu guztiak ezin zintzoagoak eta zuzenagoak dira; idazkariak eta eskribauak soilik dira zitalak. Jose Morales

Inork hura eskatutakoan Indalexiok baietz esanda ere **eskatzaileak** nekez hartuko zion hari txokolotik hara ateratako txokolatea. Edorta Jimenez

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan **eskatzaileen** artekoen %41 «kontrolatuak izateko deituak izan eta ez direlako hitzordura agertu» dituzte atera ANPEren zerrendatik. Berria - Harian

Dewael baikor da Errusia eta Kongoko gobernuekin asilo **eskatzaileak** etxeratzeko aurki sinatzekoak diren akordioek kanporaketen kopurua handitzeari begira. Berria - Mundua

Nire jaioterrian ikusi izan dut gizona, sari-**eskatzaile** hauetako bati otsokumea erosi, eta bere etxean umeak eginda zeukan txakurrari hazi eragiten; baina hiru hilabete zitueneko adierazi zuen garbiro, beraren grina gaiztoa zertarako zen. Anjel Lertxundi

Begi hutsak, begi aztertzaileak, kontu-**eskatzaileak**: hori, hori, zer egiten du ume honek hemen! Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
asilo eskatzaileak (3); **asilo eskatzaileen** (4); **eskatzaileen artean** (3); **eta asilo eskatzaileen** (3)

---

eskatze *iz* norbaiti, beragandik lortu nahi duguna adieraztea.

Adelak maistra-etxetik irteterakoan esan zizkigun hitzak buruan taupaka neuzkan oraindik; heriotza hain garbi iradokitze hura, iragarpen baten antzera; ametsetan bezala dirua **eskatze** hura, ondoren ezetz esan bazidan ere; bazirudien SOS bat bidaltzen ari zitzaidala, mezu larri bat. Juan Kruz Igerabide

Aznarren agerraldia **eskatzearen** aldeko jarrerari eusten diotela nabarmendu zuten taldeok. halere, agerraldiak eskatzerakoan «selektiboak» izateko dei egin zuen IU-ICVko buru Gaspar Llamazaresek. Berria - Mundua

Asisko zaldunak eta limosna **eskatzearen** goraipamena. Askoren artean

Protesta hori baino kontu **eskatze** are mingarriagoak baliatu nituen. Anjel Lertxundi

Konduen **eskatze** hori doi bat harrigarria da zeren eta jadanik emanak dizkio, Magendie-ri erakutsi dokumentu batek frogatzen duen bezala. Xipri Arbelbide

Lehen batean, talde zenbaitek bahitu zituelako ustekeria izanik, huna non berriz aipatzen diren orain, erranez norbaitek zerbait diru edo libertate **eskatze** eginen zuela, bahitzaleen jokoa izan balitz hor. Herria

Indigenak bizi diren lurrak erabili ahal izateko indigenei baimena **eskatzearen** aldekoa da EB. Berria - Gaiak

Hizkuntza eskakizun hori **eskatzearen** aurka azaldu ziren hasieratik CCOO eta UGT, negoziaziotik kanpo geratu ziren sindikatuak. Berria - Euskal Herria

Mahatsondoari masustak **eskatzearen** antzekoa litzateke hori, Patri. Hasier Etxeberria

Erauzi du nigandik, jauna, ene baimen nagia, **eskatzearen eskatzez**, eta, azkenean, makurtu natzaio zigilatzera neure onespen gogorra. Juan Garzia

---

eskatzear *adlag* eskatzeko zorian.

Izena presoen laguntzeko zerrendetarik kentzea **eskatzear** egon zen orduan, bere gain hartuko zituela semearen behar afektibo eta ekonomikoak aitzinatuz. Itxaro Borda

Hainbat bankuren inguruan kezka zabaldu zen atzo, eta, gure partidan, bi banku handiek bederen galerak izan zituzten, eurek ere mus **eskatzear** baleude bezala. Berria - Ekonomia

---

eskatzearren *adlag* eskatzeko.

Baina, hura ustekabe ederra; musikarietako bat kolpeka hasi zen agertokiko zoruan, isiltasuna **eskatzearren**, eta, herritarren jantzian, hara non koblakari ospetsu bat agertu

zen. Patxi Zubizarreta

---

eskatzeke *adlag* eskatu gabe.

Hala bada-eta behor txiki haiekin bere zaletasuna asetzeko beroaldia piztu zitzaion Rozinanteri; eta bere ohizko pausajea bizkortuz, jabeari baimenik **eskatzeke**, traka-traka bizi samarrean joan zen haiengana bere eginbeharra parte ematera. Patxi Ezkiaga

Besterik gabe elkartu zait ibilaldian, ez baimenik ez antzekorik **eskatzeke**; "nire izena Hussein da" esan eta horri nahikoa iritzi dio nire osterakide bihurtzeko. Jon Arretxe

---

eskax *izond adkor* eskasa. ik **exkax**.

Ondo gauza **eskaxa** zen ezeren hasiera izateko, baina berehala sortu ziren Ama Birjinaren agerpen bati buruz mintzatzen ziren pertsonak. Bernardo Atxaga

Bada, adierazi dut erdizka poemaren aurkezpenean, Gertrudisen garai hartako frantses **eskaxa** aipatzerakoan. Bernardo Atxaga

Ongi dakit oso erraza dela nire autoritate **eskaxa** errefusatzea. Juan Garzia

Trevisoko Scavolini taldeko zuzendaritzak jokalaria fitxatzeko interesa onartu bazuen ere, pibotaren soldata handiak eta iaz eman zuen errendimendu **eskaxa** oztopo handiegia izan daiteke erosle bat aurkitzeko. Berria - Kirola

Momentu horretan, hasieran ziurtasun **eskaxez**, baina gero aurrerapen handiak eginez, gogotik estutzen diozu eta baita galtzaren zirritua irekitzen hasten ere. Karlos Zabala

Orain ez dela hain **eskaxa**, hori esan nahi dut. Bernardo Atxaga

Felixek egindako sarrera-azterketa hain zen **eskaxa** -nahita egin omen zuen hala- ezen ez baitzuten onartzerik izan eskola hartan, nahiz militarra izan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Metro erdi bat **eskaxera**, ia hankapean han hasten zait txioka, xalto alde batera eta xalto bestera, txioka eta txioka. Patziku Perurena

Ollo hil, eta handik hilabete **eskaxera**, joan den apirilaren 26an, Don Kastor beteranoa hil zen. Txillardegi

1877ko otsailaren hasieran, urtebete **eskax** errefuxiatu gisa Lapurdin bizi nintzelarik, [...]. Txillardegi

---

eskaxko *izond adkor* eskasa.

Neroni ere zale egin nintzen haiekin batera, delituen zalea, hilketa-kateen zalea eta militar edo kriminal gaizkileen zalea; delitu eta gaizkile **eskaxko** betiere haien bien ustez. Fernando Rey

---

eskazale *iz/izond* eskatzailea.

Otordu horren usaiera datorrena behar du izan, inondik inola, alderrai jende horrek guziak: alemanak, hungaroak, zingaroak, ijitoak, agotak, ikazkileak, kaskarotak edo dena delako **eskazaleak**, alegia. Patziku Perurena

Kanpoko edozein **eskazale** alproja. Patziku Perurena

Leitzatik atera gabe, mende honen aurrenetan Joakina "Nabarra" izeneko baztandar **eskazale** hura datorkit burura. Patziku Perurena

Nork uka euskal errege jatortako para berri diguten ikazkin muturbeltz alfer tripazain **eskazale** honen moro traza nabaria? Patziku Perurena

San Blas, esate bateko, XII. mendeaz geroztik erromes milagrero eta behartsu **eskazaleen** zaindari izan zen. Patziku Perurena

Kontuak hola, gure Orentzero, gizajo **eskazale** alprojaren pantomima tipikoa da. Patziku Perurena

Zezenketan hain ezaguna den *domingillo* hitzaren historia ere, jakitekoa litzateke nola sortua den Erdi Aroko *domingero* **eskazale** zarpazu haien irudira, agian? Patziku Perurena

Erruz erabili izan baita zakuto hitza, gure herriska puskabiltzaile eta **eskazale** poliglota hauetan. Patziku Perurena

---

eske[1] **1** *adlag* eskatzen. ik **galdez**.

Buhameak kanpoan zebiltzan, **eske**, bazter batetik bestera dindilizka. Itxaro Borda

Pattarra baino gosari mardulagoaren **eske** datozenei. Pako Aristi

Eta gogoetatu gabe geroaz, **eske** dabiltza egun guziez, egun hartako hazkurriaren bila. Xipri Arbelbide

Eske zebilenean, aurretik musuka eta tinko-samur lerratzen zitzaizkion maitaleak gogoratu zituen. Itxaro Borda

Ez eman inori zeure ondasunik, gero, damututa, itzultzeko **eske** ibil ez zaitezen. Elizen arteko biblia

Ez zuen deitu eta **eske** joan nintzaionean ez zeukan ezer aurreratuta, hutsetik hasi behar izan nuen berriro. Berria - Harian

Gela hartan entzuten zituen bere menekoek ekarritako kexak eta eskakizunak, bertan banatzen zituen **eske** zetozenen artean laguntzak eta ondasunak, han baretzen zituen aspalditik piztutako liskarrak eta epaitzen zituen hara aurkeztutako hainbat gorabehera eta auzi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Absalom **eske** eta **eske** ari zitzaion arren, erregeak ez zuen joan nahi izan. Elizen arteko biblia

Iheslarietakoren bat ibaia igarotzen uzteko **eske** hurbiltzean, efraimdarra zen galdetzen zioten; ezetz esaten bazuen, galaadtarrek. Elizen arteko biblia

Segitzen du dakitenen jardunak: aitzakia bat da dena, ez-izan-eta-bai-uste merkea, beti **eske**, beti gose-egarriak egoteko aitzakia. Iñaki Segurola

Garai hartan, euskal merkatua egarri zen, orientabiderik eta ezagutza kritikorik gabe seguraski, baina **eske**. Berria - Kultura

Zerbait segurtamen bila edo berdin **eske**. Piarres Aintziart

2 (izen baten eskuinean) eskatzen; bila.

Bazkaria dakarkigute, eta gu ardo **eske** hasi gatzaizkie Alemaniako azafata ilehoriei. Pako Aristi

Bidaiariak gaituzu, emakumea, gau honetarako ostatu **eske** etorriak zurera -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

Anbulantzia **eske egindako** telefono deiak. Berria - Euskal Herria

Bidaiari galdutakoren bat salbu, gainerakoak bazekiagu zertara doazen gela **eske**. Migel Angel Mintegi

Neskak aitari begiratu zion, baimen **eske**. Anjel Lertxundi

Horretan ari zela, Teoklimeno izeneko iheslari bat hurbildu zitzaion, babes **eske**. Juan Kruz Igerabide

Babesle **eske**, garaipenekin. Berria - Kirola

Hura ere aukera **eske** zebilen, eta orduko entrenatzaileak, Bernd Kraussek, lehen taldera igoko zela agindu zion, baldin eta 25 gol sartzen bazituen. Berria - Kirola

Berme **eske** doaz Madrilera. Berria - Ekonomia

Irlandatik ordezkaritza zabala izan zen Euskal Herriarentzat konponbide **eske**. Berria - Harian

-Langile batailoi osoa aterpe **eske** Frantzian. Koldo Izagirre

Juduak mirarizko seinale **eske** dabiltza, eta jentilak jakinduria bila. Elizen arteko biblia

Trenari begira, eskuak gora eta zangoak zabalik jarri gaituzte eta paper **eske** datoz, banan bana. Joseba Sarrionandia

Orduan, idolo eta zorilariengana, hildakoen espiritu eta aztiengana joko dute kontseilu **eske**. Elizen arteko biblia

Letrajale lerdetsu horietakoa, klasean aipaturiko goiti-beheitiez galdezka, bibliografia **eske**, koipe-jario. Xabier Mendiguren Elizegi

-Bai, badakizu -esan nuen-, ez egin ezjakinaren itxura, aholku **eske** natorkizu. Fernando Rey

Hurtado bere osaba Iturriozengana joan zen, sartzeko gomendio **eske**. Josu Zabaleta

Barkazio **eske** joan zitzaizkien; gero, kanpora atera eta hiritik alde egiteko erregutu zieten. Elizen arteko biblia

Asko irakurri diat, hara -esaten du barkamen **eske** bezala-. Xabier Olarra

Gizon hura, Frantzisko dohatsuaren festaburu bezpera hurbil zela jakinik, santuari arren handiz eta negarrez dei egiten hasi zitzaion, erruki **eske**. Askoren artean

Rebekak zioen berekiko: "Zergatik gertatu zait gero niri horrelakorik?" Jaunarengana jo zuen argitasun **eske**. Elizen arteko biblia

Jerusalem mendeku **eske**. Elizen arteko biblia

-Mesedez, jo ezazue berriro -esan du soldadu batek ahots dardaratiz, musika **eske** bainoago musika erreguka. Felipe Juaristi

Aldi hartan, Akaz erregeak mezulariak bidali zizkion Asiriako erregeari laguntza **eske**. Elizen arteko biblia

Atzo Jaurlaritzaren Donostiako ordezkaritzan protesta egin zuten, soluzio **eske**. Berria - Euskal Herria

Gazteekin bilkura, konpromiso **eske**: Abuztuan Kolonian (Alemania) topaketa erraldoia egin zuen Ratzingerrek mundu zabaleko milaka gazterekin. Berria - Gaiak

Milaka lagun autodeterminazio **eske**. Berria - Mundua

Zuek, ordea, ez zenidaten jaramonik egin, eta orain haren odola ordain **eske** ari zaigu. Jose Antonio Mujika

Berriro ere definizio **eske** hasi ez zaitezen, atal horri adimen edo arrazoimen dei diezaiokegu. Imanol Unzurrunzaga

Aita abelera odoltsu hartan ikusita, oihuka hasi da laguntza **eske**, apaiz **eske**, zeruaren erruki **eske**. Anjel Lertxundi

Lan **eske**, otordu **eske**, lo egiteko toki **eske** dabil London bere izen bereko hirian. Pablo Sastre

Aldaketaren alde boto **eske**. Berria - Mundua

Ines Villalpando andrearenera errota berri **eske**. Juan Garzia

Gisa honetan atzemandako otsokumeak askotan ikusi izan ditugu, otarretxo batean darabiltzatela bizirik herriz herri, atzitze-sari **eske**. Anjel Lertxundi

· ik eskeko 3.

Lur Maitea plataformak Espainiako Auzitegi Gorenean babes **eskeko** helegitea aurkeztuko du. Berria - Euskal Herria

Laguntza **eskeko** garrasiak entzutean. Berria - Mundua

-Idatziko duk zerbait Mitxelio astoaz? -galdetu zidan, erruki **eskeko** begirada batez-. Anjel Lertxundi

Badu gure San Nikolasek, batez ere **eskeko** kantetan hartzen duen irudi horrek, Orentzeroren antzik asko. Patziku Perurena

Egon-gelako mahaian pausatua zen igandeko **eskeko** dirua ostu zion hiru gauez bihotz zabalki aterpea eman zion Jainkoaren Zerbitzari suharrari. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan)

Orain, Thierryren **eske**-lagunak ziren labanaren harian dil-dil, Paristik jin mutiko basa horien parean. Itxaro Borda

4 (-en atzizkiaren eskuinean) bila.

Heriotzaren **eske** ari naiz ni. Jose Antonio Mujika

-Yusuf, Yusuf! Etorriko zara nirekin zaldiaren **eske**? -galdetu zion Gülbaharrek azken eginahalean. Fernando Rey

Pattarra baino gosari mardulagoaren **eske** datozenei. Pako Aristi

Betaurrekoak jantzi eta, erdi ilunpean, pijamaren galtzen **eske** ibili nintzen gelako nahas-mahasean. Aingeru Epaltza

Galtzak lurretik jaso eta heriosuharrean janzten hasi zen, baina kuttuna gainera joan zitzaion, azken musua, azken igurtzialdia, azken larrualdiaren **eske**. Pako Aristi

Alexis bere biziaren **eske** joan zitzaienean, ez zuten hartu beren etxeetan, kanpoan zirela esan zioten zerbitzari ongi ikasiek. Felipe Juaristi

Hitz aproposen baten **eske** abiatu nintzen. Aingeru Epaltza

Inguru hutsera luzatu nituen begiak, ihesbideren baten **eske**. Aingeru Epaltza

Lerro hauek idazten ari naizen 2005eko martxoaren 17an, gose greban gaude estatus politikoaren **eske**. Jokin Urain

Memoria historikoa aipatzen dutenean, argi utzi nahi izan dute ez dabiltzala kutsurik gabeko aitortzaren **eske**: [...]. Berria - Euskal Herria

EHU aspalditik ari da finantzaketa egonkorraren **eske** Perez Iglesiasek sarritan eskatu du, aurretik Monterok egin bezala, bestela ez duelako aurrera egiterik. Berria - Harian

Apezaren predikuari kasu handirik egin gabe, aurpegi ezagunen **eske** egin nuen elizkizunaren parterik luzeena. Aingeru Epaltza

Jonkiren bat azken dosiaren **eske**. Koldo Izagirre

Aspaldi agindu zietenaren **eske**. Berria - Euskal Herria

• **5** *iz* eskaera, eskatzea.

-Eta nork eman dauzu **eske** horren egiteko baimena. Marzel Etxehandi

Bere inspirazioaren eta misio profetikoaren benetakotasun eta jatortasun ebanjelikoaren kontzientzia biziak (--) **eske** hau egitera eragiten dio: gorde eta sarri gogora ekar daitezela bere idazkiak, eta kopiak atera eta bana daitezela. Utz nazazu, ez nazazu gehiago ikus; ez, arren otoi, gehiago izkiria; horra nire **eske** fermua. Askoren artean

Hitzez eta etsenpluz **eskera** joatera eragiten zien anaiei. Askoren artean

San Blasetan... **eskera** bidaltzen ditugun euskal aingeru xuriok, edo noren ondorekoak bestela. Patziku Perurena

Koplak, nagusiki **eskerako** eta errondarako erabiltzen dira eta aspaldikoa da euren jatorria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bazen bizileku batean anaia bat **eskerako** "inor" ez zena, baina mahairako "pila" bat. Askoren artean

Epaiak dio Jaurlaritza «gobernu erakunde» bat dela eta, beraz, ezin duela auzi **eskerik** aurkeztu. Berria - Euskal Herria

5a ***eskean*** eskatzen.

Askotan ez zuten batere ogirik, eta beren estualdian Asisko lautadan han-hemen **eskean** biltzen zituzten arbiekin konformatu behar izaten zuten gosea arintzeko. Askoren artean

· Jaunaren gorespen kantak amaitu ondoren, harri **eskean** hasi zen, lehen aipatutako eliza berriztatzeko. Askoren artean

6 ***eskez*** *adlag* eskatzen.

Sainduak argi eta gidari, beren bekatuen gaztigu-ordainketaz, edo fagore haundi zerbaiten **eskez** hala-nola. Herria

6a ***eskezko*** *izlag*

Erruki **eskezko** jarrera biktimista, beste bat. Anjel Lertxundi

7 ***barka eske*** *(orobat* ***barkeske*** *g.er.) adlag* barkamena eskatuz.

Kapitaina eta marinelak, lehorrean, **barka eske** aritu zitzaizkion da Ruari, baina berak, artean izuaren irudia gogotik ezabatzeke, ez zien barkatu nahi izan. Felipe Juaristi

Lehenago ere deitu nion behin, berarekin hain zakarra izan nintzelako **barka eske**, baina pausatu egin zidan telefonoa. Oskar Arana

· *(izen gisa)* **Barka eske** isil modura. Fernando Morillo

Aitak **barka eskeko** keinu batez altxatu zituen eskuak. Alberto Ladron Arana

8 ***eske egile*** *iz/izond* eske egiten duena.

Beraz aurten usaia baino goizago ikusiko ditugu **eske egileak** eta agian denetan izanen dute "Ongi Etorri" hoberena. Primak ez dira on eta **eske egiletzat** ekartzen gaitu eritzi publikoak. Herria

Herritarrez zintzoki lagunduak ginen hortako, lehenik Jatsuko irakurle argi eta gazteria **eske egile** sano batez, sainduaren liburu eta oroitzapenak eskaintzen zituztelarik zenbaitek. Herria

9 ***eske egin***

Lehen axuantak azpimarratu die **eske egitea** ez dela debekatua Baionan. Herria

Funtsean, etxez etxe gazteak hasiak zauzkigu **eske egiten** joan den asteburuan. Herria

Apezaren predikuari kasu handirik egin gabe, aurpegi ezagunen **eske egin** nuen elizkizunaren parterik luzeena. Aingeru Epaltza

Horregatik, gehiegizko eta eramanezineko jan-uzte gogorrari ekin diozula jakin dudanez, erregu eta **eske egiten** dizut Jaunagan, ene laztana, utz dezazula zuhurki eta zentzuz laztasun hori. Askoren artean

10 *eske festa* *(orobat* ***eskefesta****)*

Bien bitartean, santu eta santa mordoska aitzaki, beti **eske festarako** prest. Patziku Perurena

Niri ordea, erregek eta babak lotzen dituen beste sorkari batek piztu dit jakingura: "Rey de la Faba" izeneko **eskefestak**, hain zuzen. Patziku Perurena

11 *eske kanta* *(orobat* ***eskekanta****)*

Noiztik ez ote dabiltza Euskal Herri osoan, tankera honetako **eske-kantak**?: [...]. Patziku Perurena

R. M. Azkuek, bere kantutegian, **eske kanten** saila azaltzekoan, honela dio: [...].Guzien prototipo gisan fosildurik geldituko zen **eske kantetan**, eta, seguru aski,baita eskerako pantomima gisan ere. Patziku Perurena

Arrais-Orantza horrek, Bizkai aldeko Buzkantza hitza ekarri dit burura, eta gure **eskekantak**. Patziku Perurena

Ahozko usario biziari esker, eta besteak beste, urtero zaharberritzen ziren **eskekanten** bidez. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aholku eske (35); **aldaketa eske** (4); **argibide eske** (9); **aterpe eske** (4); **auzi eske** (4); **azalpen eske** (13); **babes eske** (27); **baimen eske** (17); **baina eske** (5); **barkamen eske** (50); **barkamen eske ari** (4); **barkamen eske bezala** (5); **barkazio eske** (9); **baten eske** (29); **beti eske** (4); **boto eske** (7); **diru eske** (35); **elkarrizketa eske** (4); **erruki eske** (23); **eske ari** (40); **eske ari da** (5); **eske ari zen** (7); **eske ari zitzaion** (5); **eske bat** (8); **eske bat eginen** (4); **eske begiratu** (5); **eske bezala** (16); **eske dabil** (4); **eske dagoen** (4); **eske dei** (5); **eske deiadar** (7); **eske edo** (15); **eske egiten** (4); **eske eta** (13); **eske etorri** (29); **eske etorriko** (6); **eske etortzen** (9); **eske europako** (21); **eske europako segurtasun** (20); **eske hasi** (18); **eske hasi zen** (5); **eske hasiko** (6); **eske ibili** (5); **eske ibiltzeko** (4); **eske ibiltzen** (5); **eske jo** (5); **eske joan** (51); **eske joan eta** (4); **eske joan zitzaion** (6); **eske joatea** (8); **eske joateko** (4); **eske joaten** (7); **eske natorkizu** (5); **eske oihu** (6); **eske zebilen** (5); **eta barkamen eske** (4); **eta eske** (16); **eta laguntza eske** (10); **informazio eske** (18); **janari eske** (7); **justizia eske** (15); **konponbide eske** (7); **konpromiso eske** (6); **kontseilu eske** (5); **kontu eske** (44); **laguntza eske** (231); **laguntza eske ari** (9); **laguntza eske bezala** (4); **laguntza eske dei** (5); **laguntza eske deiadar** (7); **laguntza eske etorri** (6); **laguntza eske joan** (13); **laguntza eske joaten** (4); **laguntza eske oihu** (6); **lan eske** (16); **limosna eske** (54); **limosna eske joan** (7); **limosna eske joatea** (7); **maitasunagatik limosna eske** (4); **mendeku eske** (8); **mesede eske** (6); **mirarizko seinale eske** (4); **negoziazio eske** (4); **sari eske** (5); **seinale eske** (7); **ur eske** (4); **ziren laguntza eske** (5); **zuen laguntza eske** (6)

---

eske[2] *junt adkor* zeren. **-**

Eske ni masta nagusian lotua nintzen. Joxean Sagaztizabal

- **Eske**, kurtsillo bat ematen ari baigara. Patziku Perurena

Eske niri, xomorroak... Berria - Kultura

Ez... **eske** ez dut nahi gurasoak enteratzerik. Pako Aristi

Bueno, **eske** guk ez dugu gehiegi hitz egiten, eta hitz egiteko gogoa nuen, edo dut. Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskefesta ik **eske**[1] **10**.

---

eskegi, eskegi, eskegitzen *(orobat eskegiten g.er.)* da/du *ad* zintzilikatu.

Gero, belaunak tolestu zituen eta soldaduen besoetatik **eskegi** zen, oinak herrestan. Jose Morales

Bi lagun zerbitzutik kanpo dagoen trenbide gaineko zubitik **eskegi** ziren, eta bat trenaren sabaira erori zen, katenaria ukituta deskarga elektrikoa jaso zuen, eta lurrera erori zen. Berria - Euskal Herria

Garrasika, jauzi batez lepotik **eskegi** zitzaion eta musu labur eta estuak ematen hasi zen, itoaraziz, musuei erantzuteko astirik eman gabe. Jose Morales

Etorri, harrapatu, eraman, **eskegi** eta hanketatik tira egingo zioten. Jose Morales

Jaka sarrerako kakoan **eskegi** eta koadrozko zapatilak jantzi ondoren, eroso eseri naiz egongelan. Patxi Iturritegi

Estatxa utzita bular parean zeukan uztaian **eskegi** zuen gorputza galtzarbeetarik, arnasa berdindu asmoz, Ez **eskegi**, berehala bukatuko diat -tarte baten ondoren Llum Danirekin hizketan hasten da berriro-. Koldo Izagirre

Luisek, toaila **eskegi** ondoren, muzin bat egin du ispilu aurrean. Patxi Iturritegi

-Errepublikaren bandera ere **eskegi** duzue -esan nion, itzalari begiratuz, nire identitate orria mahai gainean uzten nuen aldi berean. Edorta Jimenez

Ispilua **eskegi** dut. Koldo Izagirre

Telefonoa **eskegi** zuen, oso poliki, eta ingurua behatu zuen, etxea kulunkatzen ari zelako inpresioarekin. Jon Alonso

Hizketan bukatu zuenean, telefonoa **eskegi** eta gugana bueltatu zen. Koro Navarro

Burtek entzungailua **eskegi** eta begira geratu zitzaion. Koro Navarro

Zutik aritu zen telefonoz eta aurikularra gakoan **eskegi** ondoren ere halan iraun zuen, Pedriño noiz itzuliko zain. Josu Landa

Lehen seinalea eman orduko **eskegi** zuen ordea berriro. Harkaitz Cano

Telefonista baretzeko esaldi lasaigarria bota, tirriki-tarraka, eta **eskegi** egin zuen. Jon Alonso

Gero, **eskegi** nuen haren deia ezeztatzeko, eta zentraleko zenbakia markatu nuen. Xabier Olarra

-Mozoloa zara! -eta, klik, **eskegi** dio telefonoa. Hasier Etxeberria

Altzako kanpandorretik ikurrina **eskegi** zuena. Joan Mari Irigoien

'Zuek **eskegi** duzue irakasle baten karikatura hau. Joseba Sarrionandia

Metraileta bizkar gainean **eskegi**, uhal batez, eta txalo batzuk eman zituen, bertan zeudenen arreta deitzeko. Jon Alonso

Manda bien buelta osoan txopatik brankara oihalak **eskegi** ahal ditiat, armaturik dagoenik inork ikusi ez dezan. Edorta Jimenez

Upela hantxe geratu zen, dilindan, urkamendian **eskegi** dutenaren moduan, alegia, erpin hark lurra ukitu ez ukitu, aldiz bai eta aldiz ez, arnasa denoi eragotzi zigun dantzan. Edorta Jimenez

Oinetatik **eskegi** egin zutela eta gorputz osoan kolpeak eman zizkiotela azaldu zuen. Berria - Mundua

Protestaldia hastear zegoenean, gazte batzuek pankarta erraldoi bat **eskegi** zuten Jesusen Bihotzaren estatuatik, *Segi aurrera epaiketen gainetik* leloarekin. Berria - Harian

Txuri-beltzeko argazki ilunak **eskegi** ditu. Berria - Kultura

Epaiak esaten du Nafarroako eta Espainiako banderak bakarrik zintzilikatuko direla udal eraikinetan egunero eta ikurrina edo beste bandera batzuk egoera berezietan bakarrik **eskegiko** direla, beste erkidego edo udaletako agintariak bisitan datozenean, kasu. Berria - Euskal Herria

Hormetan **eskegi** ezin zitezkeen obrak egiten zituen batik bat: instalazioak. Berria - Kultura

2 irud/hed

Belarrietatik **eskegi** dizkidate inflazioak, autobideko hilak, ministroak, ordenantzak, asteroideak, tituluak, eguraldiak eta enparauak, harik eta irratia amatatu eta liburua altzoan hartu dudan arte. Joseba Sarrionandia

Justin Hall izeneko unibertsitate ikasleak sortu zuen lehenengo bloga, normalean ezkutuan idazten diren gogoeta eta bizipenak sarean **eskegi** zituenean. Berria - Harian

-Mutilak bere partida horietako bat egiten badu... -eta puntu suspentsibo haietatik **eskegi** zuen bere esperantzatxoa. Joan Mari Irigoien

Aspekoek 3-0 hes egitea lortu ostean, Bengoetxea eta Belokik 3-5koa **eskegi** zuen. Berria - Kirola

Arriskuak bere fruitua eman zuen eta markagailuan 35-38koa **eskegitea** lortu zuten. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airean eskegita (5); **balkoian eskegita** (3); **bat eskegi** (11); **bat eskegi du** (3); **batetik eskegita** (4); **entzungailua eskegi** (3); **ere eskegi** (4); **eskegi ditu** (7); **eskegi dituzte** (6); **eskegi du** (11); **eskegi dut** (3); **eskegi egin** (12); **eskegi egin zuen** (5); **eskegi eta** (23); **eskegi eta gero** (3); **eskegi nuen** (5); **eskegi nuenean** (3); **eskegi ondoren** (3); **eskegi zituzten** (5); **eskegi zuen** (33); **eskegi zuenean** (3); **eskegi zuten** (8); **eskegiko zuten** (3); **eskegita dagoen** (5); **eskegita dauden** (4); **eskegita egon** (3); **eskegita eta** (3); **eskegita geratu** (4); **eskegita zegoen** (8); **eskegita zeuden** (5); **eskegitzen ari** (4); **eskegitzen du** (4); **eta eskegi** (9); **eta telefonoa eskegi** (7); **horman eskegita** (5); **hormetan eskegita** (4); **lepotik eskegita** (6); **pankarta eskegi** (3); **paparrean eskegita** (6); **telefonoa eskegi** (40); **telefonoa eskegi du** (5); **telefonoa eskegi eta** (10); **telefonoa eskegi zuen** (11); **zegoen eskegita** (4); **zerutik eskegita** (3); **zeuden eskegita** (4)

---

eskegiarazi, eskegiaraz, eskegiarazten du *ad* eskegitzera behartu.

Bere buruari Ongilea eta Aberriaren Aita goitizenak jarri zizkion arren herriak El Chapas zeritzon, bularrean dominak **eskegiarazteko** zeukan zaletasun itsuari irri eginez. Edorta Jimenez

-Horretara etorri zara? Bandera bat kenaraztera edo **eskegiaraztera**? Nigatik balitz hor bandera bakarra legoke. Edorta Jimenez

---

eskegiro *iz adkor* eskatzeko giroa.

Hala ere, orain arte ikasi eta sumatu dudanagatik, ez dut dudarik egiten nik, Orentzero gurea, aurrez adierazi dudan **eskegiro** alproja horren eraginez, San Nikolas eta beste antzeko asko bezala, Europako iparraldetik Fraintzin barrena sartua dugula. Patziku Perurena

---

eskegitze *iz* zintzilikatzea.

Hortaz, era horretako azterketa batean bada denborazko jarraitasunen **eskegitze** bat -zehazkiago esanda formulazioen egutegiaren **eskegitzea** -. Xabier Arregi

---

eskeini ik **eskaini**.

---

eskeintza ik **eskaintza**.

---

eskeka *adlag* eskatzen.

Baltzaren hanka hori-beltza behin eta berriz **eskeka**, eta dena hankaz gora uzkailtzeko arriskutan. Txillardegi

---

eskekanta ik **eske[1] 10**.

---

eskeko **1** *iz* eskalea.

Nire ama lapurra zen, **eskekoa**, herriko puta. Eskarne Mujika

Lapur-jendeak zituan, **eskekoak**. Eskarne Mujika

Egun batzuen buruan, anaia hura oraindik mundutik ekarritako arropekin jantzirik zegoela, **eskeko** bat etorri zen leku hartara, Frantzisko dohatsuari limosna eske. Askoren artean

Eta, guztiarekin, **eskekoak** ziren munduan gehien maite zituen pertsonak, Lurra bete eskale desio zuen. Patxi Zubizarreta

Burua belaunetan tinkotua eta zurrunga batean ari zen lehen **eskekoarengana** hurreratu zen. Patxi Zubizarreta

Frantzisko dohatsua Rocca di Briziotik gertu dagoen anaien bizilekura predikatzera joan zen batean, predikua egin behar zuen egun berean, **eskeko** gaixo bat etorri zen berarengana. Askoren artean

Mota eta kolore guztietako erromesak dituzu: buruberoak, erdizoroak, **eskeko** profesionalak, sainduak eta lekaimeak, jende xehe eta arrunta, aberatsak, pobreak gehienak. Gotzon Garate

Berandu da eta apenas dabil jenderik: lo egiteko bazter erosoren baten bila dabilen **eskekoa**; azkeneko trena hartzera doazen bidaiari bakan batzuk. Anjel Lertxundi

Elbarritasunik gabeko **eskekoa** hutsaren hurrengoa da. Patxi Zubizarreta

Espainian **eskeko** ibiltzea ez da harrigarri. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Bere bizitzaren eta bere irakurketen zakarrontzian zer-nola baliatuko ari den **eskekoa** da idazlea, zein loretan nolako polena bilduko dabilen erle urduria. Anjel Lertxundi

Indian 5 bat milioi jainkoaren **eskeko** daude. Gotzon Garate

3 (izenlagun gisa) ik **eske[1] 2**.

Eskeko mojak edo "beatak" bigarren mailako erlijio-emakumeak ziren: ez zuten doterik behar, ez baitziren ohizko lekaime-etxeetara joaten, eta erlijioak emandako pozetatik eta eskean bildutako purtziletatik bizi ohi ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste ariketa batzuk ere egiten dituzte, hala nola itsumen eta gortasuneko ariketa, **eskeko** ariketa, barau ariketa, ankertzeko ariketa, isiltasun ariketa, geldirik irauteko ariketa. Pablo Sastre

· Niri zegokidan gaia ateratzea -esku biak bat eginda barkamen **eskeko** keinua egin zuen Mentxuk-. Josu Landa

Esku horixka haiek, erruki **eskeko** keinu etsitu batez elkartuak. Alberto Ladron Arana

Holako haurfesta eta **eskeko** erronda modu desberdinak ahotan dituela, hala baitio J.M. Iribarrenek: [...]. Patziku Perurena

Laster antzeman nion kantu zaharra zela hura, Gernikako Marijesien tankerakoa, santa-**eskeko** koplen antza ere bazuen arren; Azkuek aspaldi bildu zigun **eskeko** kanten artean honakoa: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskeko bat (3); **eta eskeko** (3)

---

eskela *iz* norbaiten heriotzaren iragarkia, egunkarietan agertzen dena.

Eskelak garrantzitsuak dira Euskal Herrian eta gainontzekoetan. Pako Aristi

Ez alferrik dira **eskelak** egunkarietako albisterik irakurrienak. Joxerra Garzia

Jendeak telefonoz deitzen dio elkarri, "ikusi al duzu halakoren **eskela"** dioen esaldiarekin hasita. Pako Aristi

Orduan gogoratu du Jose Marik gizon horren **eskela** ikusi zuela, duela urtebete pasatxo, haren okindegiaren erakusleihoan itsatsirik. Iban Zaldua

Norberaren **eskela** egunkarian ikustea. Iñaki Segurola

Jugoslaviako presidente ohiaren **eskela** argitaratu zuten atzo Serbiako bi egunkarik. Berria - Mundua

Lehenbizikoa **eskela** preparatzea izango da: nolakoa nahi duzuen, zeinek agertu behar duen, argazkia. Pablo Sastre

Ez dik egunkaririk irakurtzen, eta are gutiago **eskelak**. Aingeru Epaltza

Mahai azpitik egunkaria atera eta nire eskuetan utzi zuen, **eskelen** orrialdean zabalik. Aingeru Epaltza

Atzo, gure aitonak gordeta dituen argazki eta **eskela** batzuk ikusten egon ninduan. Xabier Etxabe

Nire **eskelak** eta nire heriotzari buruzko albisteak biltzen zituzten egunkari ebakinak aurkitu nituen biharamunean Anbotoko buzoian. Juan Luis Zabala

Borreroa asko mintzen da kondenatuaren familiak **eskelan** bere izena jartzen ez duenean. Beheko partean dago, **eskela** handiagoen azpian erdi galdurik, lotsaz bezala. Karlos Linazasoro

Jende askok **eskela** orrietatik hasten du egunkaria. Pako Aristi

Badakit non edukitzen dituen gordeta argazki, **eskela** eta periodiko zatiak. Xabier Etxabe

Gurpil zulatzeak zenbait autotan, **eskela** itxurako paperak salatarien izen-deiturekin, karabineroen zodiac gris berria desagertzea. Koldo Izagirre

Heriotzaren errutina Aostako hil-**eskela** erraldoietan. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskelak eta (3); **eta eskela** (3)

---

eskelari *iz ipar* eskekoa.

Goizetik KAXKAROTAK: aspaldiko ihauteri ohitura, dantzari, **eskelari** eta soinulari multzoa karriketan. Herria

Horren gatik, ordaina nonbaitik behar, horra berriz ere **eskelari** bilakatzen dela U.E. Herria

---

eskeleto *(orobat **eskeletu** g.er.) iz* gizaki edo abere baten gorputza egituratzen duen hezurren multzoa. ik**hezurdura 2**.

Pentsa dezagun estalirik dagoen **eskeletoa** ikusten uzten dizkiguten X izpien bidezko ikuspenean. Xabier Kintana

Eskeletoa besterik ez da ageri han, eta kalabera haruntzaxeago, bere adar biekin desapioka. Patziku Perurena

Eskeletoaren hezur eta giltzadurekin batera, abiadura txikiko atzera-aurrerako motor sail bat eratzen dute muskuluek gorputzaren jarduera fisikoak eragiteko. Irene Aldasoro

Hezurrek, **eskeletoaren** oinarrizko elementuek, zurrunak izan behar dute, baina ez zurrunegiak, hobe baita presioaren eraginpean zertxobait deformatzea, haustea baino. Irene Aldasoro

Marrazo eta lanproietan, kartilagozkoa da **eskeletoa**. Irene Aldasoro

Animalia gehienek behar dute **eskeletoa** (izaki ñimiñoenak bazter utzita, baina hegazti eta arrainak ere barne hartuta). Irene Aldasoro

Eskeletoari bernahezurrak erori zaizkio! Fernando Rey

Lehenik eta behin, lurraren kontra indarra egin ahal izateko behar da (ibiltzean, esate baterako) hezurrezko **eskeletoa**. Irene Aldasoro

Koralek kareharrizko **eskeletoa** dute, eta **eskeleto** hori sortzeko, itsasoko uraren kaltzio karbonatoa erabiltzen dute. Berria - Gaiak

Gero, gorputz erraustu bat aurkituko dute, **eskeleto** zuri bat, hezurdura biluzi garden bat sabaira begira, irribarrearen zantzoz edertua, hain eder eta hilik. Karlos Linazasoro

Ingalaterran Poeta Erramuduna Erregeren gorteko kargudun izaten da, eta **eskeleto** dantzari gisa jardun ohi du gorteko edozein festatan eta abeslari mutu gisa errege-hileta guztietan. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Itxuraz, metro luzeko emakume heldu baten **eskeleto** zati bat da Australiako New England Unibertsitateko arkeologoek aurkitu dutena. Berria - Gaiak

Nabarmenagoa da hezurrei loturik dauden **eskeleto**-muskuluen lana. Irene Aldasoro

Eskeleto-hezur galanta, Italiakoa. Edorta Jimenez

Barrualdean Maine Avramovicek giza **eskeleto** baten azpian ipini du beste emakume bat La Fabrica galerian. Berria - Kultura

Egia da helburu horretarako bide bakarra ez dela barne-**eskeletoa**: itsaskiek duten hezurrezko estalkia gorputzaren kanpoaldean dago. Irene Aldasoro

3 irud/hed

Jantzi handiegien barnean metal hariz osatutakoa zirudien, halako batean arropa erantzi eta alanbrezko **eskeleto** bat aurkitu behar bagenu bezala. Lander Garro

Gauaren belztasuna ontziralekuen atzean lekuko zela, ontzien **eskeleto** beltzak ageri ziren. Lopez de Arana

Tuberiak, bizikleten **eskeletoak**, elektrodomestikoen karkasak. Herririk gehienak, etengabeko gerratean, kasik **eskeleto** huts bihurtuak. Pablo Sastre

Hitz batean, nobelaren **eskeletoari** eutsi diot, narrazioa arintze aldera. Joan Mari Irigoien

Oraindik ez zekiat zer den ere poema bat biribiltzea; ipuin bat harrigarri bihurtzea; nobela baten **eskeletoa** haragitzea. Patziku Perurena

Sozialismo errealaren akatsetako bat boterea hartu nahiari eustea izan zen; Negriren hitzekin esanik: «Kapitalismoaren **eskeletoa** armairuan gordetzea». Berria - Kultura

Gero Ernest Hemingwayk berak zabalduko zuen gerra hartan zauritu zuten lehenengo amerikarra izan zelakoa, legendaren **eskeletoa** osatuko zuen bigarren hezurra. Edorta Jimenez

Hitzen **eskeleto** xuriak ez digu ematen pozik. Patziku Perurena

---

eskeleton *iz* **

Emakumezkoen banakako **eskeletonean**, Maya Pedersen suitzarrak lortu zuen garaipena, Shelley Rudman britainiarraren eta Mellisa Hollingsworht-Richards kanadarraren aurretik. Berria - Kirola

---

eskeletotzar *iz adkor* eskeleto handia.

-Gizon-emakume haiek, bada, batetik bestera zebiltzaan, harik eta, halako batean, giza talde batek munstro erraldoi itxurako haren **eskeletotzarrarekin** topo egin zuen arte. Joan Mari Irigoien

---

eskeletu ik **eskeleto**.

---

eskema **1** *iz* zerbaiten lerro nagusiak soilik adierazten dituen marrazkia; zerbaiten alde nagusiak soilik jasotzen dituen

adierazpena.

Irudia eta **eskema**. Josu Zabaleta

Oroitzapenaren tresna den neurrian, "ekonomikoa" da **eskema**, irudikatzen duena baino bakunagoa izan behar baitu, irakurtzen errazagoa. Josu Zabaleta

Eskema fenomenoa besterik ez da, edo objektu baten sentsuzko adigaia kategoriarekin adostasunean. Ibon Uribarri

Eskemak denboraren determinazioak besterik ez dira, a priori erregela batzuei jarraiki eginak, kategorien ordenaren arabera denboraren alderdi hauek adierazten dituzten erregelak, alegia: ilara, edukia, ordena, eta azkenik, multzoa. Ibon Uribarri

Lau **eskema** hauek -atribuzioa, artikulazioa, adieraztea eta deribazioa- ez dituzte adierazten gramatikari klasikoek benetan erabiliko dituzten kontzeptuak. Xabier Arregi

Arrazoimenaren ideia sentimenaren **eskema** baten analogoa da. Ibon Uribarri

Adimenaren ekintzak, ordea, indeterminatuak dira sentimenaren **eskemarik** gabe. Ibon Uribarri

Geometrak figuren beharra dauka matematikako erlazioen **eskemak** egiteko. Askoren artean

Subjektu/objektu **eskema**. Joxe Azurmendi

Mikel ohartu zen aldi oro **eskema** bera errepikatzen zela: frantses gizon zahar bat, hirurogei, hirurogeita hamar urtekoa, hogei bat urteko probintzia pobreetako filipindar neska batekin. Ramuntxo Etxeberri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eskema narras zirriborratu bat izan ezik, ez neukan besterik idatzirik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemen **eskema** orientagarri orokor bat bakarrik emango dugu. Askoren artean

Edozein eduki mental, izan daitekeen berriena edo bihurriena izanik ere, **eskema** metriko erabilien barruan -5-5/8 eta 7/6 silabako egiturak dira une honetan horiek-egokitzeko gaitasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Diskoen gibeleko azaletan agertzen ziren dantzaren urratsen **eskema** sinplifikatuak segitzen zituzten, lerroz lerro. Ramuntxo Etxeberri

Gorputzeko odol-zirkulazioaren **eskema** teknikoa. Irene Aldasoro

Errealitatearen **eskema** kontzeptual bat egiten dugu. Berria - Euskal Herria

Pertsonaien buruaren atzean ipinitako argizko biribil edo aureolak haien santutasuna adierazten zuen (sinbolismo zaharrago batetik etorritako **eskema** ikonografikoa da, izatez, argi-koroatik, auratik, datorrena). Josu Zabaleta

Giza primateok oso joera handia daukagu **eskema** bipolarrekin funtzionatzeko: zuria/beltza, ona/txarra, goian/behean, barruan/kanpoan, ederra/zatarra. Luis Elberdin

Forma eskematikoek, hartara egokiturik, erabilera jakin batzuei erantzuten diete, baina aldatu egiten dira [...] erabilera horiek aldatuz doazen neurrian, eta orobat aldatzen dira jakintza berriak sortu ahala, jakintza berri horiek desegoki bihurtzen baitituzte **eskema** zaharrak. Josu Zabaleta

Arrazakeriaren aurkako lege zorrotzenak ere ez ditu desagerrarazi gure baitan hain errotuak ditugun **eskema** xenofoboak. Anjel Lertxundi

Fededun guztientzako gutunaren bi idazkera ditugu gaur egun, **eskema** berekoak biak, nahiz eta bigarrena luze-zabalagoa izan lehenengoa baino. Askoren artean

Zelanok hemen Frantziskoren haurtzaro eta gaztaroari buruz aurkezten duen koadro guztiz ilunak [...] ez die datu errealei erantzuten, baizik eta S. Agustinen eraginpean zeuden eta Erdi Aroan ohikoak ziren **eskema** hagiografikoei jarraitzen die. Askoren artean

Inork ez du aitortzen gerra honek ez duela ezeren antzik, ezerk ez duela horretan zentzurik, inolako **eskemarik** ez zaiola egokitzen. Josu Zabaleta

Zeren, gerrako **eskema** batean, kontuan hartu behar baitira informazioak! Josu Zabaleta

Lan akademiko baten ohiko **eskemak** oinarrizko hiru zati ditu: sarrera, garapena eta ondorioa. Askoren artean

Descartesen filosofiaren printzipiook epistemologia modernoaren oinarrizko **eskema** finkatzen dute. Askoren artean

Pertzepziozko **eskemen** existentzian oinarritzen da ikuslearen pertzepzio-ahalmen hau. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Herriko jendeak, gizaera konkretuak nabarien diren lekukoak, alegia, giza **eskema** jenerikoak nahiago ditu, betiko arketipoak: artapuskak edo gaizto amorratuak, alderdi onak edo gaiztoak esajeratuz sortutako gizandi horiek, alegia. Patziku Perurena

Herri Kontratuak, PCD, Lurralde **Eskemak**, Garapen xedeak hurbilegitik ezagutzen genituen. Horixe formalizatu du, beste inolako teoriak baino hobeto, Gestalttheorie-k, forma zenbait elementuren arteko aldakuntzarik gabeko erlazio-**eskema** gisa definitzean. Itxaro Borda

Argudio zehatzak aterako diren "argudio-**eskema** formalak" dira "leku komun" horiek: Erretinako fluxuak, azkenik, berebiziko garrantzia du joera honentzat, zeren objektuaren beraren edo begiralearen mugimendu-aldaera bakoitzak transformazio-**eskema** (bakar) bat eragiten baitu erretinan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez da denboraz kanpoko forma izango, baizik eta denborazko sail askoren arteko elkarrekikotasun **eskema**. Xabier Arregi

Arkeologiak, beraz, ez du eredutzat hartzen ez aldiberekotasun **eskema** logiko hutsa, ezta gertaeren jarraitasun lineala ere. Xabier Arregi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antolaketa eskema (6); **arteko eskema** (5); **baten eskema** (7); **bere eskema** (3); **beste eskema** (4); **bi mahaien eskema** (3); **da eskema** (3); **den eskema** (4); **duen eskema** (3); **erregulatzailearen eskema** (3); **eskema aldatu** (3); **eskema aldatzea** (3); **eskema bat** (14); **eskema batean** (6); **eskema baten** (3); **eskema bera** (9); **eskema bera erabiltzen** (3); **eskema da** (4); **eskema erabili** (3); **eskema eta** (9); **eskema ez** (3); **eskema gisa** (4); **eskema guztiak** (6); **eskema guztiz** (3); **eskema hau** (5); **eskema honek** (4); **eskema honen** (3); **eskema hori** (12); **eskema horrekin** (4); **eskema horren** (4); **eskema horretan** (7); **eskema horri** (3); **eskema politikoa** (4); **eskeman sartzen** (3); **eskemaren arabera** (3); **eskemen arabera** (4); **eta eskema** (13); **garapen eskema** (3); **gerraren eskema** (3); **honako eskema** (3); **lurralde antolaketa eskema** (3); **lurralde eskemak** (3); **mahaien eskema** (5); **oinarrizko eskema** (5); **orain arteko eskema** (3); **printzipio erregulatzailearen eskema** (3)

---

eskemakeria *iz* eskemen erabilera gaitzesgarria.

Horiek horrela, batzuek hain gustuko duten **eskemakeriari** jarraiki, eta etiketa jartzea erraza denez, 35 orduen alde egotea ikuspegi ezkertiarrarekin lotu izan da, eta kontra egotea berriz, eskuinekoarekin. Iñaki Heras

---

eskematiko *izond* eskemari dagokiona; guztia osagai oinarrizkoenetara murrizteko joera duena.

Giltzurrun artifizial baten diagrama **eskematikoa**. Irene Aldasoro

Irudi **eskematiko** eta geometrikoekin. Xabier Olarra

Karrusel handi baten egitura **eskematikoak** betetzen du eremu eszeniko ia osoa. Berria - Kultura

Halako sinplifikazio **eskematikoa** dela medio, irudituko zaigu errealitatea desitxuratzen dela Eskema ez dela inola ere gauza absolutua da ideia horren ondorio garrantzitsuena: forma **eskematikoek**, hartara egokiturik, erabilera jakin batzuei erantzuten diete, baina aldatu egiten dira -eta desagertu batzuetan-, erabilera horiek aldatuz doazen neurrian. Isabel Arrigain

Marrazkiak, esaterako, xumeak dira, **eskematikoak** askotan.Neoliberalismoaren aurrean ez dugu proposamen **eskematikorik** egin nahi. Berria - Kultura

Ikusmolde tradizional horren arabera, honela labur daiteke, modu **eskematikoan**, nazioarteko ekonomia osatuz joan den gertakari-katea. Koro Navarro

Metodo groteskoa baliatuz, giza bizitzaren oso koadro **eskematiko** eta pesimistak marrazten zituen. Jose Morales

Aipamen berezia merezi dute dekoratu naturalista **eskematikoak** eta argiztapenak, oso baliabide ekonomikoekin lortzen baitute familia-etxea, taberna eta aitaren eta semearen etxeak irudikatzea. Berria - Kultura

Oso modu **eskematikoan** bada ere, esan daiteke lehendik optikoki eta gero kimikoki tratatu den informazioaren hirugarren tratamendu maila bat osatzen duela sare guztiz trinko eta konplexu horrek. Josu Zabaleta

Nire eskultura **eskematikoenek** ere, figuratiboak izateari utzi gabe, gizakiaren arrastoari jarraitzea ahalbidetzen dute. Berria - Kultura

Marrazkiak, esaterako, xumeak dira, **eskematikoak** askotan. Berria - Kultura

Berpizkundeko perspektiba bere garaiko kultura- edo pentsamolde-joeraren emaitza gisa aurkezteko modu hau **eskematikoegia** da. Josu Zabaleta

Hasiera-hasieratik egia esan ez izanaz damu, listua irentsi eta Angelori gertatutakoa kontatu nion, ahalik **eskematikoen**, baina inportanteenak zehatz adierazita. Anjel

Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
modu eskematikoan (4)

---

eskematikoki *adlag* era eskematikoan.

Eskematikoki esanda: batetik enpresarioak, irabaziek errentan duten partaidetza areagotu nahian, eta bestetik langileak, hauek ere taldeetan antolaturik eta sindikatuen bidez ordezkaturik, soldatek errentan duten partaidetza handitu nahian. Iñaki Heras

Esperientzia horrek -Koperniko, Kepler, Galilei, zientzia berri guztiarena baita- Filosofia Moderno guztia ere zer den **eskematikoki** ulertzeko giltza eskaintzen du. Askoren artean

Berpizkundean arteaz zegoen irizpidea ere bi ezaugarriotan laburbil daiteke **eskematikoki**: [...]. Josu Zabaleta

Hots mota nagusien EZAUGARRI grafikoak, labur eta **eskematikoki**, honako hauek dira: [...]. Lourdes Oñederra

Oso **eskematikoki**, esan daiteke zenbait bilakabide pilatu direla diakronikoki oraindik, itzulpenerako erregela gisa, emankor den ordezkatze honetan. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
oso eskematikoki (3)

---

eskematismo *iz* eskematikoa denaren nolakotasuna.

Frantziako Iraultza ostean garatu diren Historiaren Filosofia indartsuetatik poliki-poliki askatzen joan da -gogora itzazue Hegel, Marx, Darwin-, nahiz eta horiek ere haien **eskematismoekin** jokatu zuten hastapenetan. Askoren artean

Agerpenei eta beren forma soilari dagokienez adimenaren **eskematismoa** giza arimaren sakonean dagoen antze ezkutu bat da. Ibon Uribarri

Juzgamenaren irakaspen transzendental honek bi atalburu barnebiltzen ditu: lehenak, adimenaren adigai hutsak erabili ahal izateko sentsuzko baldintzez jarduten du, h[au] d[a], adimen hutsaren **eskematismoaz**. Ibon Uribarri

Heldutasunean, alabaina, **eskematismo** politiko hertsiago batez aritu izan da -*Exkixu* (1988), *Putzu* (1998)-, haren ekarpen guztietan sinbologia berriak eta estilo modernoak etengabe aurkitzen diren arren. Askoren artean

Triangelu orokor baten kontzeptua... Txakurraren kontzeptua... Gure adimenaren **eskematismo** hau... giza arimaren barrenetan gordeta datzan artea da. Jenaro Garate

---

eskematizatu, eskematiza(tu), eskematizatzen *(orobat **eskematu** g.er.)* du *ad* eskemara murriztu.

Errealitatea **eskematizatuz** eta horrenbestez sinplifikatuz, [...]. Isabel Arrigain

Karta horren bertze **eskematizatua** den kopia bat egin dut irakurleak bidaiaren urrats nagusiak segi ditzan. Aurelia Arkotxa

2 (era burutua izenondo gisa)

Naturala da "litekeena" kontzeptua "maiztasun handikoa" bezala ulertzea, eta uste izatea hizkuntzalariak gramatikalaren eta ez-gramatikalaren artean egiten duen bereizkuntza zorrotzaren zergatia, hizkuntzaren "errealitateak" erakusten duen konplexutasuna gehiegizkoa izanik, eredu **eskematu** batekin konformatu beharrean datzala, "zero maiztasuna, eta maiztasun erabat txiki guztiak ezinezko-rekin" ordezkatuz, "eta maiztasun handiak litekeena-rekin." Itziar Laka

---

eskematizatzaile *izond* eskemara murrizten duena.

Estilo desitxura-zaleak estilo **eskematizatzaileak** izaten dira beti. Josu Zabaleta

---

eskematizatze *iz* eskemara murriztea.

Biluzte, **eskematizatze**, estilizatze handiena gertatzen da prozesu horretan. Iñaki Iñurrieta

---

eskematizazio *iz* eskemara murriztea.

Bereziki garbia zen hori Nadiaren kasuan, itxura zenez ez baitzituen pasatu zirrimarra, **eskematizazio** eta zapaburu faseak, eta edozein ume normalek ez bezala marrazten baitzuen marrazten zuenean. Xabier Olarra

Ginea Berriko papuei, alderantziz, lehenengo argazkiak erakutsi zitzaizkienean, bitxiak, ulergaitzak, estetika maila apalekoak iruditu zitzaizkien irudi haiek, **eskematizazio**-maila txikia zutelako. Josu Zabaleta

---

eskematu ik **eskematizatu**.

---

eskena ik **eszena**.

---

eskenaratu ik **eszenaratu**.

---

eskenategi ik **eszenategi**.

---

eskenatoki ik **eszenatoki**.

---

eskentza ik **eskaintza**.

---

eskeptiko ik **eszeptiko**.

---

eskeptizismo ik **eszeptizismo**.

---

esker *(ETCn **14.236** agerraldi; orobat **eskar** g.er.)* **1** *iz* mesede edo kideko bat hartu duenaren ezagutzazko sentimena.

Esker eta txaloak jasotzen zituen, orduan, Goñi bertsolariak ordainetan. Berria - Kultura

-Gogoratzen **Esker** Egiteko Egunaz? -esan zuen. Koro Navarro

Esker berezi-bereziak eman nahi dizkiot, bestetik, irakurleak amaieran aurkituko duen *Hondar solas* ederraren egileari, Carlos Blanco Aguinagari. Juan Garzia

Esker bihotz-bihotzetikoak, bada, gure irundar unibertsal horri. Juan Garzia

Esker hitzekin batera instituzioei dei bat egiteko ere probestu zuen bere hitzalditxoa. Berria - Kultura

Gaztetan behinik behin, inoiz ez nion **esker** hitzik aditu edo estimaziorik den mendrena ere ikusi izebarekin. Aingeru Epaltza

Esker hitzak eman zizkioten, emakumeak frantsesez eta ingelesez, eta gizon buru txikiak euskaraz. Anjel Lertxundi

Eskerrak Jainko ahalguztidunari, bere santuengan hain miragarri eta maitagarri agertzen delako beti! Askoren artean

Eskerrak Jainkoari, beraren ezin esan ahalako dohain horrengatik. Elizen arteko biblia

2 (hitz soila, -i deklinazio atzizkiaren eskuinean)

XIX. mendearen azken urteetan beste garai bat hasi zen Asisko Frantziskori eta haren idazkiei buruzko ikerketan, Paul Sabatier historialariari **esker**. Askoren artean

Gaur egun Venezuelan inoiz inongo gobernu batek bultzatu ez dituen aldaketak ari dira ematen, eta aldaketa horiek Chavezi **esker** egin dira. Pako Aristi

Berari zor diozue izatea, Jesu Kristori **esker**. Mielanjel Haranak emandako agiriei **esker** egin genezake Jazinto Rivasen lehen urteen kronologia bat. Elizen arteko biblia

Lapurtutako baloiei **esker** kontraerasoak bilatu zituen etxeko taldeak, eta geldikako jokoan oreka bilatuz erraz bideratu zuen partida (24-11). Berria - Kirola

Paduan zehar paseatuko nauen bus bat hartu, eta bidean ikusten ditudan seinaleei **esker** dakit halako eraikuntza Chiesa Eremitani dela. Anjel Lertxundi

Bazkide txartela garestitzeari **esker**, iaz baino 916.115 euro gehiago jasoko ditu Realak aurten. Berria - Kirola

Baina lan horieri **esker** Luzaideko postari edo pietunak beti aitzina eraman du bere lana. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haizeari **esker** dira libre oihalontziak itsasoan. Josu Zabaleta

Indiak montzoiei **esker** irauten duela esan liteke. Gotzon Garate

Gaizkaren lan finari **esker**-edo, Txemari eta Ainararen gutun bat iritsi zitzaigun. Xabier Mendiguren Elizegi

Cunegok Gilberto Simoni eta Andrea Tontiri hartu zien aurrea helmugan, eta lider jarri da, gainsariei **esker**. Berria - Kirola

-Aurrerantzean, zuri **esker**, ez dugu eragozpen gehiago jasan beharko. Joxan Elosegi

Dena dela, hari **esker** daki dakien apurra. Patxi Iturritegi

Tira, bagenuen sua, eta sutarako egurra, eta horiei **esker** horrenbestean moldatu ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ukendua erabiltzen baldin badut eta Jainkoaren laguntzaz sendatzen banaiz, neskame maratz bat bidaliko dizut, eta haren azpilanari **esker**, handik gutxira hilko zara. Patxi Zubizarreta

Neure artean egin nuen buruz burukoa hasita zegoela noski eta lehen ekinaldia nik irabazia nuela, itzur egin bainion, berrogei minutuz bederen, halabeharraren mesede bati **esker** bederen, nire aurkariaren erasoari. Juan Garzia

Ernai jarri nau horrek: Juan Inazio Iztueta bost egun barru kalean izango da justiziaren eskuzabaltasun gehiegizkoari **esker**. Anjel Lertxundi

Beren trebetasun eta kemenari **esker** jabetuak ziren herrialde hartaz guztiaz, beraienetik oso urruti egon arren. Elizen arteko biblia

Imanolek agertu bezala, argi hobea zegoen han, sabaitik zintzilikatutako bi bonbilla indartsuri **esker**. Fernando Morillo

Fantasma orok, arte sorkari orok, izateko, bere drama behar du izan, bera bertako pertsonaia den eta harixe **esker** pertsonaia den drama bat, hain zuzen. Josu Zabaleta

Alaitasunez eramaten zituen, Jaunari gorespen eta **esker** kantak zuzenduz: laguntzen zioten anaiek Paulo apostolua balitz bezala begiratzen zioten, gurutzea zuelako harrobide alai eta apal, edo beste Job bat iruditzen zitzaien, bere barne kemen aldagaitzagatik. Askoren artean

Oteizari **esker** egin zen Gandiaga poeta. Pako Aristi

3 ***anitz esker*** eskerrik asko.

Anitz esker, beraz. Baina ez daukat Euskaltzaindiaren izendapena onartzerik. Berria - Kultura

- **Anitz esker**, maitea. Iñaki Zabaleta

- **Anitz esker** baina ez dut joan nahi, ez nago gogoz. Iñaki Zabaleta

"Adiskide zintzoa, **anitz esker"**, erran zidan, eskua tinkaturik, "argibideak hartuko ditut". Jon Muñoz

· **Anitz esker** behar dizkizut eman, hain zure gutunaren beharretan nintzen! Jon Muñoz

4 ***esker anitz*** eskerrik asko.

Esker anitz. Lourdes Oñederra

-Mila **esker anitz** zure konfiantzarengatik -esan diot-. Txillardegi

Ermitari eta Basoiri **esker anitz** gauza berri ikusten dut eta zinez nasaiki ene herriaz ikasten ari niz. Michel Oronoz

-Santxo lagun, **esker anitz** damaizkiot zeruari, nik ezer dohatsurik aurkitu izan baino lehenago, hiri halabeharra on-aldiz harrera on bat egitera irten izana bidera. Patxi Ezkiaga

5 ***esker eman*** eskerrak eman.

Ulertzen dut orain bere eginkizunaren emaitza ezin hobeaz ari zela gozatzen, **esker emanez** isilean ahalguztidunari, mirari hura lortzen lagundu izanagatik. Oskar Arana

Ezingo zitzaion inoiz zeruari nahikoa **esker eman**! Anton Garikano

· Handik gutxira, neskari lagundu nion, eta mila **esker eman** nizkion, egin zituen guztiengatik... Josu Zabaleta

6 ***esker emate***

Fedeak eta hunkidurak hartaratua almuedanoa belauniko jausi zen, baina gauza bakoitza bere garaian, Ala ez da asaldatuko zor zaizkion eskerronak apurtxo bat geroratzen badira, **esker emateak** baino lehen pozak hedatu behar du. Ezer baino lehen, gizaki guztien alde eskari, otoitz, erregu eta **esker-emateak** egiteko eskatzen dizut. Jon Alonso

Rachel bigarren hezkuntzako ikastetxean ari zen eta artean etxean bizi zen garaira jo nuen, **Esker Emate** ostegun hotz batera. Oskar Arana

Philip-ek New Jersey-ra gonbidatzen nau urtero **Esker emate** egunez. Oskar Arana

Hitzordu bikoitza zuten: 1937-rekin eta **Esker-emate** Egunaren aurreko afariarekin. Berria - Kultura

7 ***esker gaizto***

Kristo anaien **esker gaiztoaz** kexatzen zaio anai Leoni. Askoren artean

Kristok kexa agertu zion Frantziskoren lagun Leon anaiari, anaien **esker gaiztoa** eta harrokeria zela eta. Askoren artean

Ikusten zuen Jainkoak bere Seme bakarraren odol baliotsuaz salbaturiko herria beraren aginduez ahazturik bizi zela eta beraren mesedeei **esker gaiztoz** erantzuten ziela. Askoren artean

Bidezkoa da mesedeekin **esker gaiztoko** direnei hondamendia gainera etortzea. Askoren artean

Gizagaixo hura aurkitu zutenean, zaintza guztiz gogorra ezarri zion, **esker gaiztokoa** izateagatik. Askoren artean

Esker gaiztokoak gara etengabe hainbeste dohainen aurrean, ez baitugu on guztien kreatzaile eta emaile den Jauna behar bezala goresten. Askoren artean

Eta ni ezin naiz **esker gaiztoko** izan jakintza horrekin. Imanol Unzurrunzaga

Esker gaiztokoa ! Traidorea! Fernando Rey

Esker gaiztoko portatzen bada ere, txantxangorria du kukuak lagun estimatuena. Patziku Perurena

8 *esker mila* *(ETCn 47 agerraldi)*

- **Esker mila** , zuri, Cruger jauna -esan zuen andereñoak-. Mirentxu Larrañaga

Bakarka-bakarka, **esker mila** horiei guztiei, bihotzez. Pello Salaburu

Esker mila Katalunia! Harremanak azkart ditzagün. Herria

- **Esker mila** , baina ezin dizugu gonbitea onartu, presaka baikabiltza. Anjel Lertxundi

Esker mila , halaber, Gorka Elordieta lankide fonologialariari bere iruzkinengatik, bere eztabaida gogoagatik. Lourdes Oñederra

Zeren eta zure gutun berri bat iritsi baitzait orain berean - **esker mila** , bihotzez!-, eta hori ez da egunoroz gertatzen den pozgarria. Joan Mari Irigoien

Horra beraz zergatik kasu horretan egin duzunarentzat **esker mila** bihurtzen dizkizudan eta izigarri atsegin dudan gure Aita Sainduak Tarragonako artzapezpikua kardinale egin duelakotz. Piarres Xarriton

- **Esker mila** -erraiten diot. Marzel Etxehandi

- **Esker mila** , seme: ez nuen zuganik gutiago igurikitzen. Joan Mari Irigoien

Esker mila , esan du mutilak ogitartekoak jaso dituenean. Pello Lizarralde

Esker mila , murmurikatu du Lainez irriberaren aurrean, eta kanpora egin du. Pello Lizarralde

Esker mila beroenak Berlingo Orkestrari! Berria - Kultura

Beno, zera, **esker mila** guztiagatik. Jasone Osoro

9 *esker meza* eskerrak emateko meza.

Debozioz eta esker onez, probidentziaren errukitasun mugagabea ezagutzen zuen orduan, **esker-mezak** atera, eta berriro ekiten zion bere bizimodu barreiatuari. Jose Morales

Hitzaldi hori berdin egin izan dut **esker-mezetan** nola bataioetan, sendotzetan, apalkuntza-egunetan eta jai-egunetan. Antton Olano

Bekan edo sekulan ikusi ez dena, barnean bezainbat kanpoan baitziren jendeak, denek ixiltasun haundienean mikroeri **esker meza** guzia segitu dutelarik. Herria

Aiherrako koralari **esker meza** eder batekin hasi egun hori herriko besta giro batean bururatu da ontsa ilundu ondoan. Herria

10 *esker on* *(ETCn 828 agerraldii; orobat* ***eskerron*** *g.er.)*

Neure **esker ona** nahi nioke erakutsi, baina ez dakit zer egin hari mintzatzeko; eta okasioa kausi baneza ere, ez nekike agian zer erran, ahalkearen ahalkez. Jon Muñoz

Oraindik ez diot **esker ona** adierazi gure Sprague andre gaixoari, oparituriko marrubi-koilararengatik. Mirentxu Larrañaga

Oraindik ez diot **esker ona** adierazi gure Sprague andre gaixoari, oparituriko marrubi-koilararengatik;Zeren, noiz eta bihurtzen baita nagusiaren nagusitasuna nagusikeria eta haren harrotasuna harrokeria, orduan akabatzen baitira menekoaren **esker onak** eta mirespenak. Mirentxu Larrañaga

Oraingo liburuan, bildu egin ditu horietarik zenbait, **esker onean** egituratu, argazki esanahidunak erantsi, eta erraz eskaini irakurleoi. Berria - Kultura

Zeren eta gauza handia baita **esker oneko** izaitea. Joan Mari Irigoien

Esker oneko ohar bat idazten hasi nintzen. Anjel Lertxundi

Abagune ezin hobea, zalantzarik gabe, **esker oneko** ezaugarri bat gure herriari eskaintzeko, Arantzazuren alde egin duen guztiagatik. Askoren artean

Gainerakoa ez zen **esker oneko** eta harridurazko adierazpen soil bat baizik, balio urriko dohainen truk. Jon Muñoz

Oso hunkigarria izan da ikustea nola hiritarren bihotzek dar-dar egiten zuten **esker onez** gainezka. Jose Morales

Jainkoa bedeinkatuz hartzen dugun **esker onezko** kopak, ez al gaitu Kristorekin bat egiten beronen odolean. Elizen arteko biblia

Kristok gaizkilerik handienarekin erabili izan balu nirekin izan duen errukia, ziur nago hura ni baino askozaz ere **esker hobekoa** izango litzatekeela. Askoren artean

Nire **esker onik** zintzoenak. Mirentxu Larrañaga

11 *esker txar* *(ETCn 115 agerraldi; orobat* ***eskertxar*** *g.er.,* ***esker tzar*** *g.er. eta* ***eskertzar*** *g.er.)*

Eraman ezina zitzaion jendearen **esker txarra** , politikarien joko narrasa, monarkiaren gainbehera. Iñigo Aranbarri

Funtsezko arrazoi askorik ez da, harentzat esker onik ez izateko eta, **esker txarra** emateko azaleko aitzakia zerbait besterik ez eta, beste alde batetik, gizakiaren janiza hut-hutsa bakarrik. Piarres Xarriton

Banekien nahi baino sarriagotan aipatu beharko nituela horrelakoak, nahiz horrek **esker txarra** besterik ez ekarri. Joxerra Garzia

Haren merituei esker, bere **esker txar** eta mespretxuagatik galdutako gorputz-atalen mugimendua berreskuratzea lortu zuen. Askoren artean

Ene anaiok, urrun zaitezte **esker txarraren** bekatutik eta ardura zaitezte beti Jainkoa goresten. Askoren artean

Ez da nire asmoa jasotako aholkuok **esker txarrez** ordaintzea. Arantxa Iturbe

Ez dut ezer jakin nahi **esker txarreko** lana eta esker oneko plazerra nahasten dituen abokatu batekin. Anjel Lertxundi

Lan zikina eta **esker txarrekoa** da berea. Berria - Kirola

Meatzetan dagoen zereginik **esker txarrekoena** : aurrekoek egindako zuloak betetzea zen haren lana. Harkaitz Cano

Aurreko bi egunetan, bera aritu zen konorterik gabea artatzeko erizain-lan **esker txarreko** eta nekosoetan. Mirentxu Larrañaga

Izan ere, gizakiak berekoi, diruzale, harro eta handiputz izango dira; biraolari, gurasoentzat errebelde, **esker txarreko** eta erlijioaren aurkako. Elizen arteko biblia

Esker txarreko lotsagabe galanta. Iñaki Mendiguren

Jaun errukitsuak egin zizkien mesedeak kontatu zituzten, eta, inoiz zabar eta **esker txarreko** izan baziren, zentzabidea eta penitentzia eskatzen zioten apalki aita santuari eta baita gogo onez onartzen ere. Askoren artean

Léonek ez zuen **esker txarreko** agertu nahi, eta afari bat eskaini zien bazkariaren ordain, Jainkoaren epai zuzenaren bidez, gizon haren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatu zen, **esker txarrekoa** izateagatik eta Jainkoa mespretxatzeagatik. Karlos Zabala

Mendebaldeko alemaniarren heren baten ustez, ekialdeko alemaniarrak **esker txarrekoak** dira. Berria - Mundua

Oso **esker txarrekoa** naiz, badakit, baina burua bueltaka hasten zait errietaka hasten zaizkidanean, eta gauza tristeak baizik ez zaizkit bururatzen! Josu Zabaleta

Harrokeria eta puzkeria baino ez zaizkigu geratzen horrelakoetan, eta oso **esker txarreko** bidaideak dituzu horiek. Javi Cillero

Prusiako protestante maltzurrak, Errusiako ortodoxo zismatikoak, eta **esker txarreko** austriar katoliko zitalak. J.M. Olaizola "Txiliku"

12 *eskerrak* (esaldi konpletibo batekin)

Eskerrak Umbertok bizpahiru egunez behin ekartzen zizkidan liburuei, haietan bilatu nahi izaten nuen-eta eguneroko bizitzan aurkitzen ez nuen ukendua. Anjel Lertxundi

Eskerrak , tiroa jaurti eta segundo milaren bat lehenago lurrera bota nuen neure burua, eta balak eskuetan neukan potean jo eta gatzatu pasteurizatuaz blai eginda utzi ninduen. Iban Zaldua

Eskerrak , gurean xuabeago eta leunago portatzen den. Pello Zabala

Eskerrak , Jaunak nire arrenak entzun dituen: ez diot alferrik eskatu! Pello Zabala

Eskerrak ez nintzela oren bat gehiago ari izan edo Baionara joan, bestela, aitamek zer erranen zioten Christopheri? Daniel Landart

Eskerrak ez nion esan ilargiarekin gehien sinesten dudala eguraldi kontuetan... Pello Zabala

Erakusleihoa odol tanta batzuz zipriztinduta ageri zen, baina, **eskerrak** , buruan geratu zitzaion bala, eta ez nuen kristalik apurtu; dendaria ez zen barrutik atera ere egin. Iban Zaldua

Eskerrak , kabinan sartu orduko hiru zenbaki ikusi nituela: 18 (Suhiltzaileak), 17 (Polizia), 15 (S.A.M.U.). Daniel Landart

Egia da, **eskerrak** gaur lainorik ez dugun. Jon Alonso

Eta **eskerrak** herri hau txikia den, eta bertako biztanleak letretara oso emanak ez diren, zeren egunkarietako izenburuak ematearekin bakarrik nahikoa baita burua zorabiatzeko, ugariren ugariz. Jon Alonso

Ez dakigu zer erantzun, seguru asko oso adimentsua izan beharko delako ergelkeria azaldu ahal izateko, **eskerrak** gelako iluntasunak babesten gaituen. Jon Alonso

· **Eskerrak** zuri, Jauna, Aita txit santua, zeru-lurren erregea, kontsolatu nauzulako! Askoren artean

Eskerrak Jainko ahalguztidunari, bere santuengan hain miragarri eta maitagarri agertzen delako beti! Askoren artean

13 *eskerrak eman*

Eskerrak eman eta gabon esan nion. Koro Navarro

Ba, zera, madamak ezer ez, ezta **eskerrak eman** ere. Antton Olano

Bolondresen itzulera egunean Chavez agertu zen **eskerrak ematera**, ez dakit zer domina motarekin batera. Pako Aristi

Orduan, **eskerrak ematen** ari zela, hunkitu zen gehien. Berria - Ekonomia

Haiek ikustean, Jainkoari **eskerrak eman** zizkion Paulok, eta gogoa bizkortu zitzaion. Elizen arteko biblia

Bide puska bat egina duenean, emaiten da belauniko eta **Jainkoari eskerrak** bihurtzen derauzko kartsuki. Xipri Arbelbide

Badakizue nori **eskerrak eman**: Natilio Carvajal Posadas de Salaberriri. Gotzon Garate

Hasteko, **eskerrak eman** behar nizkizuke, agian. Xabier Mendiguren Elizegi

Nik lan egin dudanean, dinamika horretan sartuta, lanean aritu naiz horregatik inork **eskerrak eman** behar dizkidanik pentsatu gabe. Berria - Kultura

Gurekin izan diren zenbait pertsonari, eta bereziki Alec Reid irlandarrari, gure **eskerrak eman** nahi dizkiegu. Berria - Harian

Eskerrak ematen dizkizut, pobreak gidatzen eta santu egiten dituzun Jauna, nire anaien berri hauekin pozez bete nauzulako. Askoren artean

Anaiok, **eman** diezazkiogun **eskerrak** leialki eta debozioz Jainko gure Jaunari bere dohain guztiengatik. Askoren artean

Ostiako gotzaina arras eraikia gelditu zen bataren zein bestearen hitzekin eta bihotzez **eman** zizkion **eskerrak** Jainkoari. Askoren artean

Eskerrak ematen zizkidan gutunagatik eta Daviden nahia bete izanagatik. Bernardo Atxaga

Soilik **emaizkidazu eskerrak** neure burua defendatzen erakutsi dudan kuraiagatik: bai, kuraiagatik; zeren batzuetan kuraia behar izaten baita, makurra dela sumatzen den xede bat ez hartzeko ere. Jon Muñoz

Eskerrak emaizkion hire Sortzaileari, ni agertu naizelako eta ez dunalako hil behar izan kanpoan, sasiartean. Anton Garikano

Jainkoari **eskerrak eman** beharko zenizkioke! Joxe Austin Arrieta

Orain **eskerrak** eta aintza **eman** behar dizkiogu, eta otoitz egin beren limosnez janaritu gaituztenen eta kristau herri guztiaren alde. Askoren artean

Horregatik, etengabe **ematen** dizkiogu **eskerrak** Jainkoari. Elizen arteko biblia

Denoi tente jarriz, denok umel, denok orgasmo batean, denok elkarri **eskerrak ematen**. Luis Elberdin

Eskerrak emanda irten zen kalera ostatuko ataritik. Josu Landa

Gauza guztiengatik Jainko Aitari etengabe **eskerrak emanez**, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean. Elizen arteko biblia

Olivia Harrison eta Yoko Ono (George Harrison eta John Lennonen alargunak) agertokira igo ziren, **eskerrak ematera**. Berria - Kultura

Mandatariak bere eserlekua eskaini zion, nahiago izango zuelakoan, baina neska mugitu ez, eta, burua pitin bat makurtuaz, **eskerrak ematera** mugatu zen. Karlos Zabala

Eskerrak ematearekin batera, Afifi andereak kafe kikara utzi zuen azpilean, eta erantzun zion. Patxi Zubizarreta

Gizalegetsu **eskerrak eman**, eta solasa ostera bion arteko eginbidera -hots, gure bernizen kontura- ekartzen ahalegindu nintzen. Juan Garzia

Baina Parisek ez die horregatik **eskerrak emateko** eskatzen egunero. Berria - Mundua

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko presidente Mohamed Abdelaziz, bestetik, **eskerrak emateko** eskutitz bat igorri zion atzo Aminatou Haiderri. Berria - Mundua

Perretti **eskerrak emateko** gogoa zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Eskerrak emateko era berezi samarra zuen, hori zen dena. Harkaitz Cano

1947ko haren hondarretan Mary haraxe abiatu zen, Pauline, Patrick eta Gregoryrekin batera, **Eskerrak Emateko** Eguna Kalifornian eman ostean. Edorta Jimenez

Eskerrak ematekoa, askoz ere ekintza gizakoiagoa ei da, keinu garatu eta konplexua. Harkaitz Cano

Hitzaldia Txillardegiri **eskerrak emanez** amaitu zuen Beltzak. Berria - Kultura

Babesa agertu digun jende guztiari pertsonalki **eskerrak emateko** aukerarik izango ez dugunez. Berria - Euskal Herria

Eman eskerrak, bedeinka haren izena! Elizen arteko biblia

· Del Valle, berriz, **eskerrak** sutsuki **emanez**, bizkor sartu zen, Weber bat-batean ideiaz aldatuko ote zen beldur. Alberto Ladron Arana

Zeruari **eskerrak eman** eta **eman** ari zen Don Fernando, egin zion mesedeagatik. Patxi Ezkiaga

Arrisku handietatik salbatu gaitu Jainkoak; horregatik, **eskerrik** beroenak **ematen** dizkiogu, Antioko erregearen kontrako borrokan lagundu digulako. Elizen arteko biblia

14 *eskerrik asko* *(ETCn **6.911** agerraldi)*

- **Eskerrik asko** -xuxurlatu nuen. Fernando Rey

- **Eskerrik asko**, Diego. Unai Iturriaga

- **Eskerrik asko**, Oute, estimatzen diat. Paddy Rekalde

- **Eskerrik asko** -esan dugu hirurok. -Bai, **eskerrik asko**... Zer zen hori? Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez, ez, **eskerrik asko**. Irene Aldasoro

Ze ondo, **eskerrik asko**. Anjel Lertxundi

Eskerrik asko, Jauna, **eskerrik asko**. Juan Luis Zabala

- **Eskerrik asko**, **eskerrik asko**, semetxo -esan zuen gotzainak. Koldo Biguri

-Ez, **eskerrik asko**. Unai Iturriaga

-Moldatzen naiz bakarrik, **eskerrik asko**. Harkaitz Cano

- **Eskerrik asko**, andrea -esan zuen ahoa beterik. Lopez de Arana

Eskerrik asko, Cienfuegos, baina nik ez dut gura inork libra nazan hil behar honetatik. Koldo Izagirre

-Primeran, **eskerrik asko**. Lopez de Arana

-Ez, andrea, **eskerrik asko**. Iñaki Arranz

-Ondo nago, **eskerrik asko** -esan zion-. Iñaki Mendiguren

-Oso ondo, **eskerrik asko** -erantzun zion Harryk, egindako erosketa guztiekin bera, Ron eta Hermione inguratu zitzaizkionean. Iñaki Mendiguren

-Katilukada bat te, besterik ez, **eskerrik asko** -erantzun zuen Williams andreak. Koro Navarro

Eskerrik asko, bihotzez. Mirentxu Larrañaga

-Lanorduetan ez, baina **eskerrik asko** hala ere. Koro Navarro

Eskerrik asko afari eta ikuskizunagatik, Congo. Lopez de Arana

-Gabon ba, izeba Kate, eta **eskerrik asko** gau atsegin honengatik. Irene Aldasoro

-Tira, agur eta **eskerrik asko** bisitarengatik -esan zuen lehor emakumeak. Lopez de Arana

Eskerrik asko etortzeagatik! Unai Iturriaga

Eskerrik asko, **eskerrik asko** nire eginbeharra horrenbeste erraztearren. Oskar Arana

· Txibista deigarri batez hornitutako fardela eman zion eta "**eskerrik asko**" lotsatu batekin batera jaso zuen. Josu Landa

15 *Jainkoari esker*

Jainkoari esker du haren mezulariak arrakasta, haren hitzak du dena arautzen. Elizen arteko biblia

Jainkoari esker bizia salbatu zuen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jainkoari esker, orai jakintsunek badakite umeñoaren eritasun zonbeiten sendatzen, amaren sabelean delarik oraino. Herria

Jainkoari esker eta [osasun] azterketei esker lortu duela uste dut. Berria - Mundua

Aita oraino azkar da **Jainkoari esker** eta ama ez da batere zangoetarik herrestatua. Janbattitt Dirassar

Frantziskok erantzun zion mezulariari **Jainkoari esker** librea zela eta ez zegoela herri-agintarien eskumenean, gorengo Jainko bakarraren zerbitzari zela eta. Askoren artean

Hornitu zeuen artalde, larrain eta dolareko emaitzez, emaiozue Jaunari zeuen **Jainkoari esker** lortu dituzuen ondasunetatik. Elizen arteko biblia

Espero dut, zuek eta zuen seme-alabak, **Jainkoari esker**, ongi izango zaretela eta gauzak zeuek nahi bezala aterako zaizkizuela. Elizen arteko biblia

Banituen, halere, baditut oraindik, **Jainkoari esker**, anaiak eta haurrideak Eliza hortan. Menane Oxandabaratz

Orduan, eskekoek: "Ongi, **Jainkoari esker"**. Patxi Zubizarreta

Felipe, **Jainkoari esker** Espainiako, bi Sizilietako, Jerusalemeko eta abarreko Erregek, gure adiskide maite eta hain maitagarri, aita Pacheco Toledoko Kardinale eta, Kristo baitan Guztiz Agurgarriari! Piarres Xarriton

Jateko nahikoa badugu hemen, **Jainkoari esker** ! Karlos Zabala

Hemen gauzak baretu egin dira, **Jainkoari esker**. Koldo Izagirre

Langileak, kristau onak, fededunak oso, **Jainkoari esker**. Arantxa Iturbe

16 *Jainkoari eskerrak*

Jainkoari **eskerrak**, ez dut nik zuetako inor bataiatu, Krispo eta Gaio izan ezik. Elizen arteko biblia

- **Jainkoari eskerrak**, ezin naiz kexatu -esan zuen Sobakevitxek. Jose Morales

Ni, **Jainkoari eskerrak**, ez naiz atera aita bezain ganorabakoa, eta ederki dakit bakarrik moldatzen, ama gajoak besterik uste duen arren. Patxi Iturritegi

Beraz, **Jainkoari eskerrak**, Mollyk gurera etortzen jarraitu zuen egunero, tea hartzera, eskola ostean. Mirentxu Larrañaga

Baina, **Jainkoari eskerrak**, munduan badira pertsona ulerkorrak eta gupidatsuak ere. Patxi Zubizarreta

Berrogei urte eta gehiago ditu orain, baina, **Jainkoari eskerrak**, ezin hobeto dabil osasunez. Jose Morales

-Tira, **Jainkoari eskerrak** ! -esan zuen emakumeak-, ez bainuen Walter lotsarazi nahi, inondik inora ere. Mirentxu Larrañaga

-Dena ongi joan da, **Jainkoari eskerrak** ! -adierazi zuen Xanek hurrupa luzea edanez. Elena Touyarou

Orain askoz gutxiago edaten du, **jainkoari eskerrak**. Harkaitz Cano

Nire bigarren senargaia maritxu porrokatua zen eta erdi inpotentea, baina harekin ezkontzeko zorian egon nintzen, ezkontzeko zorian besterik ez **Jainkoari eskerrak**. Karlos Zabala

17 *mila esker* *(ETCn **223** agerraldi)*

- **Mila esker** -esan nion ia ahapetik. Jon Muñoz

- **Mila esker**, osaba. - **Mila esker**, jaunak, nire aldera hain luzaro erakutsi duzuen interesagatik eta hortaz nireganako agertu duzuen estimuagatik! Matías Múgica

Mila esker, jaun-andreok. Jesus Mari Mendizabal

-Mila esker, baina ezin dugu. - **Mila esker**, berriz ere -esan zuen, eta berriro irribarre egin zidan, irribarre bortxatua, ez baina ezta beroa ere. Anjel Lertxundi

- **Mila esker**, seguru ederto dauzkadala -murmurikatu zion belarrian, eta musua eman zion lokian-. Josu Landa

- **Mila esker** niri hori gogorarazteagatik. Jon Muñoz

- **Mila esker**, ertzain jauna, **mila esker**. Juan Luis Zabala

Mila esker, **mila esker**, oso atseginak zarete, baina ez. Berria - Harian

-Ez, **mila esker** -erantzun zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga

-Ez bazina etorri, hor berean hilen nintzen; **mila esker** ! Itxaro Borda

Bihotzez, **mila esker** ! Txillardegi

-Ongi -hark erantzun-, **mila esker**. Joxe Austin Arrieta

-Ez du merezi, **mila esker**. Aingeru Epaltza

-Ezin gusturago, jauna, **mila esker** -erantzun zuen gazteak. Jon Arretxe

Gero arte, amatxo, eta **mila esker**. Itziar Otegi

Oso ongi etorri zait, Potter, **mila esker** ... Iñaki Mendiguren

Mila eta **mila esker**, dena konponduta dago. Anton Garikano

Etxetik joan? Ez, **mila esker**. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

abstentzioari esker (8); **ahaleginari esker** (18); **akordioari esker** (23); **aldeari esker** (8); **amari esker** (8); **atzoko garaipenari esker** (9); **aurrerapenei esker** (10); **babesari esker** (20); **bati esker** (311); **bati esker lortu** (10); **batzuei esker** (22); **batzueri esker** (17); **berari esker** (60); **bere esker** (24); **bere esker ona** (19); **bereziari esker** (8); **berriari esker** (16); **berriei esker** (23); **bikainari esker** (12); **bitartekaritzari esker** (12); **borrokari esker** (19); **botoei esker** (34); **da esker** (8); **diruari esker** (14); **egindako lanari esker** (31); **ekimenari esker** (10); **elkarteari esker** (13); **ere esker** (11); **errukiari esker** (9); **esker askatu** (8); **esker atera** (15); **esker aurrera** (8); **esker baizik** (16); **esker bakarrik** (8); **esker bere** (9); **esker bero** (12); **esker beroenak** (34); **esker bizi** (57); **esker bizi dira** (11); **esker da** (23); **esker dago** (9); **esker dela** (9); **esker dira** (9); **esker edo** (10); **esker egin** (48); **esker egin zuen** (10); **esker egiten** (8); **esker eman** (9); **esker ere** (17); **esker eskuratu** (8); **esker eta** (63); **esker euskal** (8); **esker eutsi** (9); **esker ez** (48); **esker ezagutu** (20); **esker ezagutzen** (10); **esker gertatu** (9); **esker gertatzen** (8); **esker ikasi** (14); **esker irabazi** (40); **esker irabazi zuen** (11); **esker iritsi** (17); **esker izan** (78); **esker izan da** (13); **esker izan duk** (20); **esker izan zen** (10); **esker izango** (9); **esker jakin** (29); **esker jakin ahal** (8); **esker jakin nuen** (8); **esker lortu** (124); **esker lortu da** (8); **esker lortu ditu** (8); **esker lortu du** (18); **esker lortu dute** (8); **esker lortu zuen** (25); **esker lortu zuten** (10); **esker lortuko** (8); **esker lortutako** (17); **esker lortzen** (15); **esker mila** (47); **esker nagusitu** (10); **esker on** (52); **esker ona** (229); **esker ona adierazi** (13); **esker ona agertu** (9); **esker ona azaldu** (10); **esker ona eta** (13); **esker onak** (26); **esker onaren** (20); **esker onartu** (12); **esker oneko** (167); **esker oneko agertu** (9); **esker oneko hitzak** (21); **esker onekoa** (32); **esker onekoak** (8); **esker onez** (162); **esker onez hartu** (9); **esker onezko** (88); **esker onezko meza** (15); **esker onezko otoitza** (14); **esker onik** (24); **esker soilik** (11); **esker sortu** (14); **esker sortzen** (8); **esker txarra** (15); **esker txarreko** (45); **esker txarrekoa** (21); **esker txarrekoak** (9); **eskuzabaltasunari esker** (12); **eta berari esker** (9); **eta esker** (137); **eta esker on** (10); **eta esker ona** (23); **eta esker oneko** (26); **eta esker onez** (21); **eta esker onezko** (8); **eta haiei esker** (9); **eta hari esker** (24); **eta horri esker** (164); **eta mila esker** (8); **fedeari esker** (25); **gainsariei esker** (10); **garaipenari esker** (21); **gol bati esker** (24); **golari esker** (23); **golei esker** (30); **graziari esker** (19); **gure esker** (26); **guztiei esker** (9); **haiei esker** (71); **handiari esker** (11); **hari esker** (139); **hartzeari esker** (13); **hauei esker** (17); **heieri esker** (8); **hiri esker** (22); **hiri esker izan** (20); **hitzarmenari esker** (16); **honi esker** (78); **horiei esker** (99); **horieri esker** (12); **horri esker** (725); **horri esker ez** (12); **horri esker irabazi** (8); **horri esker lortu** (23); **huni esker** (12); **hutsei esker** (8); **i esker** (10); **indarrari esker** (23); **izanari esker** (12); **jainkoari esker** (74); **jarrerari esker** (8); **jaunari esker** (19); **jokoari esker** (8); **laguntzari esker** (79); **laguntzei esker** (12); **lan horri esker** (15); **lan onari esker** (10); **lanari esker** (154); **lanei esker** (12); **legeari esker** (11); **liburuari esker** (9); **merezimenduei esker** (15); **merituei esker** (18); **mila esker** (219); **milla esker** (12); **mugimenduari esker** (10); **nire esker** (31); **nire esker ona** (20); **niri esker** (14); **onari esker** (36); **onei esker** (9); **oso esker** (10); **parte hartzeari esker** (8); **politikari esker** (10); **presioari esker** (10); **puntuei esker** (8); **ri esker** (21); **sariari esker** (8); **sostenguari esker** (10); **taldeari esker** (8); **zeinari esker** (11); **zuri esker** (31)

deneri eskerrak (8); **eman eskerrak** (18); **ere eskerrak** (22); **ere eskerrak eman** (10); **eskerrak bihurtu** (42); **eskerrak bihurtu ditu** (8); **eskerrak bihurtuz** (10); **eskerrak bihurtzen** (25); **eskerrak bihurtzen dituzte** (8); **eskerrak eman** (513); **eskerrak eman behar** (48); **eskerrak eman beharko** (11); **eskerrak eman ditu** (10); **eskerrak eman eta** (36); **eskerrak eman nahi** (55); **eskerrak eman nizkion** (28); **eskerrak eman ondoren** (8); **eskerrak eman zituen** (10); **eskerrak eman zizkidan** (10); **eskerrak eman zizkien** (60); **eskerrak eman zizkieten** (11); **eskerrak eman zizkion** (87); **eskerrak eman zizkioten** (16); **eskerrak emanez** (64); **eskerrak emango** (12); **eskerrak ematea** (14); **eskerrak emateko** (73); **eskerrak ematen** (105); **eskerrak ematen dizkiot** (19); **eskerrak ematen dizkizut** (14); **eskerrak ematen zizkion** (13); **eskerrak ematera** (18); **eskerrak ere** (25); **eskerrak eta** (22); **eskerrak ez** (39); **eskerrak gure** (16); **eskerrak horri** (17); **eskerrak jainkoari** (21); **eskerrak zuri** (29); **eta eskerrak** (193); **eta eskerrak eman** (58); **eta eskerrak ematen** (15); **eta horri eskerrak** (10); **eta jainkoari eskerrak** (10); **guztiei eskerrak** (18); **guztiei eskerrak eman** (13); **hari eskerrak** (13); **horri eskerrak** (14); **jainkoari eskerrak** (113); **jainkoari eskerrak eman** (17); **jainkoari eskerrak emanez** (8); **jaunari eskerrak** (10); **zuri eskerrak** (11)

eskerren bihurtzeko (11)

eskerrik asko (660); **eskerrik asko esan** (13); **eskerrik asko eta** (12); **eskerrik asko zure** (8); **eskerrik beroenak** (53); **eskerrik hanitx** (23); **eta eskerrik** (32); **eta eskerrik asko** (26); **ez eskerrik** (8); **gure eskerrik** (8)

---

eskerbako *izond* eskergabea.

Badaukat beste arrazoi bat lur jota egoteko: seme bat izan nuen emazte gorrotagarri horrekin, seme **eskerbako** bat, aspaldi hiriburura estudiatzera joan eta etxera inoiz ere etortzen ez dena. Jon Arretxe

-Seme bakarra, seme estudiantea, seme **eskerbakoa**. Jon Arretxe

---

eskerdun *izond* esker onekoa.

Kotoizko izara horixkak eta bi burko ikusi zituenean emakumearen logelan, arin-arin lehortu behar izan zituen begiak, ikus ez zitezen gizon baten malko **eskerdunak**, lehenbiziko aldia baitzuen. Anton Garikano

Aurreko gauean egin zuen aitortzaz oroitzeak min handia ematen zion; aferaren xehetasun zentzugabeenak ere aterarazi zizkion apaizak, eta hainbesteraino handitu zion azkenerako bekatua, ezen ia **eskerdun** ere bai baitzegoen konponbiderako zirrikitu baten aukera eman zitzaionean.Gizaki libreak bakarrik dira elkarrentzat, zinez, **eskerdun**. Irene Aldasoro

Gizaki libreak bakarrik dira, egiazki, **eskerdun** elkarrekiko. Piarres Xarriton

Hainbat emakumek galaitasun nabarmenago bat nahi luke harengandik; eta aitor dut **eskerdun** baino **eskerdunago** natzaiola zeren jakitate handiz hain ontsa jujatu bainau, non ez bainau haiekin nahasi. Jon Muñoz

---

eskerga 1 *izond* izugarri handia.

Erromako hiri **eskerga** hartako luxu harrigarriak zentzuen plazerren ideia haizatu zuen. Iñaki Iñurrieta

Barren-barrenean, lehen Deabruaren Burezurra zegoen lekuan, barrunbe **eskerga** bat zegoen orain, eliza baten kupularen antzekoa. Juan Garzia

Stalingrado zulo beltza zen, zulo **eskerga**, zulo kabugabea, zulo haragijalea, baina erretagoardian, hala ere, musika entzuten zen. Felipe Juaristi

Festa haietan jauregia argitu egiten zen, su hartzen zuela ematen zuen, areto **eskergetan** sute bat gertatu balitz bezala. Xabier Olarra

Ezkerretara jo du, haritz ilunezko ate **eskerga** zabalduz, eta saloi-jangela moduan erabiltzen diren erreserbatuetako batera iritsi da. Joxemari Iturralde

Leiho **eskergak** bildurik daude, errezel grisak erdi itxita. Xabier Olarra

Paret horailak eta ispilu **eskerga**. Aingeru Epaltza

Erdian hazitako bi ezki **eskergak** itzalpean zeukaten patioaren alderdi bat. Jose Morales

Izben atzean gari-meta **eskergak** ikusten ziren leku askotan, ilaran jarriak. Jose Morales

Iluntzen ari zuen eta, handik oso urrun, belatxinga saldo **eskerga** bat hara-hona zebilen doi-doi ikusten ziren adaburuen gainetik, gaua igarotzeko leku bila. Jose Morales

Haizearen indar suminduak itsasoa astintzen eta ontzi **eskergak** iraultzen eta hodeiak sakabanatzen ditu. Xabier Amuriza

Ikatz zakuen antza zuten, eta gurdiaren ardatzak okertzen zituzten beren zama **eskergaz**. Karlos Zabala

Egun sargori baten ondoren, arbel koloreko ekaitz **eskerga** batek ezkutatua zuen zerua. Juan Garzia

Une hartan ordea gure gainetik zegoen, horma altu, beltz, **eskerga** bihurtuta. Koro Navarro

2 (gauza abstraktuez)

Lantegian zuten eginbehar **eskerga** zela eta, Liviak ezin izan zuen oporrik hartu eta udazkenerako utzi behar izan zituen. Joxemari Iturralde

Euskal Herrian bertan egunero-egunero gatazkaren konponbidearen alde eta herrigintzan lanean isilik ari direnen lan **eskerga** ere. Herria

Gasteizen egin dena oso handia da, eta alor askotan egindako lan **eskergaren** ondorioa da. Berria - Harian

Tanto gogor asko egon ziren, lau pilotariek lan **eskerga** egin zuten eta bukatzeko iskanbila eduki zuen. Berria - Kirola

Jedediah Buxtonen kalkulu **eskergek** etengabe egiten zuten aurrera beren martxa finko eta desbideraezinean. Xabier Olarra

Limosnak eta gurasokeriak batzuen negozio **eskerga** areagotuko duten arren, ez dute behartsuen arazoa konponduko. Edorta Agirre

Elementu hauen konbinazioak, denbora mugagabearekin batera, antizipazio ahalmen oro gainditzen dute eta bere emankortasun **eskerga** esplikatzen, mundu posibleak, kopuruz eta tamainaz ere infinituak izan daitezkeenak. Xabier Amuriza

Eskuinaldean, xehatzeko mahai izugarri batek euskarri hartzen zuen murruan; haritzezko enbor puska **eskerga** zen, txit astuna, ebakiondoz eta ildoxkaz josia. Karlos Zabala

Poliki-poliki, aukera izan zen organismo konplexuek dauzkaten ADN kantitate **eskergak** maneatzea, zenbait gene atzematea, haiek bakartzea, elemenia aleka ugalarazteko, zehatz-mehatz arakatzea haien anatomia. Juan Garzia

Ume autista askok bezala, kontzentrazio ahalmen **eskerga** garatu zuen laster. Xabier Olarra

Gaixotasun bitxi eta inoiz kantzeroso horrek handitu marroixka **eskergak** eta azal zati puztuak eragin ditzake. Xabier Olarra

Behere hartan, berriz, nekez ikusteko moduan, "La Gallarda"ko atari arkudun **eskerga** zegoen. Txillardegi

Harrizko kaiola astun **eskerga** hura. berak ez beste inork ezagutzen zuen basorako bidean aurkitzen zen putzu usaintsu ezkutu hura, zeina, euri-jasen ostean eta berauen ondorioz, inon diren nenufare **eskerga** eta zoragarrienez betetzen baitzen. Karlos Zabala

3 (aditzekin)

Ibaia ere **eskerga** iruditzen zaio inoiz handiagorik ikusi ez duenari. Xabier Amuriza

Otsoak ez zuen hain **eskergatzat** jo. Joanes Urkixo

Arlo guztietan bakoitzak handien ikusi dituenak **eskergatzat** ohi dauzka. Xabier Amuriza

Han zegoen bera, **eskerga**, so eginez nola sartzen zuten zaku zaharrez bildutako zer bat, uztarri-bilurrez amarratua luzera guztian, hiljantzi modura. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako lan eskerga (4); **egindako lan eskergaren** (4); **eginiko lan eskerga** (6); **eskerga bat** (26); **eskerga baten** (7); **eskerga egin** (35); **eskerga egin behar** (7); **eskerga egin beharko** (6); **eskerga egin du** (4); **eskerga egin zuen** (6); **eskerga egin zuten** (4); **eskerga egiteko** (3); **eskerga eskatzen** (4); **eskerga eta** (12); **eskerga haien** (3); **eskerga hark** (3); **eskerga hartan** (3); **eskerga horretan** (3); **eskerga izango** (4); **eskergak eta** (3); **eta lan eskerga** (4); **lan eskerga** (82); **lan eskerga egin** (35); **lan eskerga eskatzen** (4); **lan eskerga eta** (5); **lan eskerga izango** (4); **lan eskergagatik** (3); **lan eskergak** (3); **lan eskergaren** (10); **lan eskergaren emaitza** (3); **lan eskergari** (3); **puska eskerga** (3)

---

eskergabe 1 *izond* egiten zaizkion mesedeak edo kidekoak eskertzen ez dituena, esker gaiztokoa.

Dama **eskergabe** horrengan galduak nituen abantailak nola berreskuratu ametsari emana betetzen dut neure aisia. Jon Muñoz

Zergatik demonio egon behar ote dute oheek ondo aireztatuta, ikusita umeek holako presa **eskergabez** utzi zituztela abandonatuta? Julen Gabiria

Joskera mota batzuk ere itzultzailearen borroka **eskergabearen** lekuko dira. Berria - Kultura

Egiazki, baldin ez badidazu zeure bizitza osoan esker ona erakusten, orduan zinez **eskergabea** zara. Jon Muñoz

Bere ergelkeriagatik opariak ordaintzen ez dakiena, ez da **eskergabea** eta, are gutiago, bere opariengatik emagalduaren lizuntasunaren zerbitzura makurtzen ez dena. Piarres Xarriton

Arras **eskergabea** nintzateke, ez banu bizitza osoan auhendatuko nigana hainbertze ontasun izan dituen eta bere fidantzia osoaz ohoratu izan nauen nagusia. Jon Muñoz

O lurbira guztiko andererik ederrena eta **eskergabeena**! Patxi Ezkiaga

2 (izen gisa)

-Ekar nigana **eskergabe** horiek! Beren gogoz nahi ez badute, neronek belaunikaraziko ditut ene aitzinean. Aingeru Epaltza

Orain gutxi zenionetik antz-eman dizut maite-minak direla zure minak, zure aieneka horietan aipatu duzun **eskergabe** eder harenganako maite-mina alegia. Patxi Ezkiaga

3 (adizlagun gisa)

Etsaigoak ez gaitu bultzatuko gaitzari gaitzaz erantzutera, neurrigabeko tristezia sakonak ez gaitu itoko, ondasunak banatzerakoan ez dugu **eskergabe** jokatuko, zurrumurru maltzurrek ez dute gure kontzientzia zintzoa larrituko. Imanol Unzurrunzaga

4 ***eskergabeko*** *izlag*

Haren onuren oroitzapena sagaratzen dugu eta gogoangarri bihurtzen egun berezietako ospakizunetan, denboraren joanean **eskergabeko** ahanzmenduan eror ez gaitezen. · Isabelek oparitutako *Jarabe de Palo*ren elastikoa, **eskergabeko** hori!, futbolean irabazitako kopa eta gutun parea. Imanol Unzurrunzaga

Mundua **eskergabekoz** beteta dago, lagun, sinets iezadazu -egoeraren mende eskua lepotik kendu eta pauso bat atzera eman zuen Maizak. Migel Angel Mintegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskergabe horrek (3)

---

eskergabekeria *iz* eskergabeari dagokion egintza gaitzesgarria.

Ni, berriz, **eskergabekeria** baino bekatu itsusiagorik ez delakoan nago. Pedro Alberdi

Sinets nazazu, andereño, amodioa adiskidantzaz ordaindu nahi izatea, ez da **eskergabekeriaren** beldurrez egotea, da eskergabearen itxura izateari berari zaion ikara. Jon Muñoz

Esan zion gainera: **"Eskergabekeri** bekatuak lehengoak baino zigor handiagoak ekartzen ditu". santuaren gorapena aldarrikatzeari uko egingo banio, **eskergabekeri** delituaz salatua izateko beldur nintzateke. Askoren artean

---

eskergabetasun *iz* eskergabea denaren nolakotasuna.

Eskergabetasuna, bizkitartean, itsuskeria da, gehienetan gehiegizko Gorrotoak, Hirak, Hantusteak, Zekenkeriak, etabarrek hunki gizakia adierazten duelako. Piarres Xarriton

Gainera, **eskergabetasuna** ez da afektu bat. Piarres Xarriton

Parada polita izanen zuen errege ohilduaren izena zikindu eta Albretekoaren **eskergabetasunaren** hotsa ateratzeko. Aingeru Epaltza

---

eskergaitz *izond* eskertzen gaitza.

-Zuk helbideak jar ditzakezu azaletan! -esan zion Lockhartek Harryri, mesede **eskergaitza** egingo balio bezala-. Iñaki Mendiguren

Bere bulegoko leihoan egiten du egun osoa, dontsuren bat konspirazioren bat amarauntzen noiz harrapatuko, eta zinez diot inork ez bezala betetzen duela lan eskerga eta **eskergaitz** hori. Anjel Lertxundi

Zer egotziko diot nik gure Zuzendari txit agurgarriari, bere lan desatsegina eta **eskergaitza**, zeina inork gutxik ulertzen baitu, betetzen eta ondo betetzen ari baita? Anjel Lertxundi

Ulertu dut hau, Jauna, eta eskerrak zuri; ikasi dut, aitortzen dizut, ene Jauna; eta ikasi du nirekin eta onesten zaitu zinezko egiari **eskergaitz** ez zaionak. Imanol Unzurrunzaga

---

eskergaixtoko ik **eskergaiztoko**.

---

eskergaiztoko *(orobat **eskergaixtoko** g.er.)* **1** *izond* esker gaiztokoa dena.

Gizon **eskergaiztokoak** pairatu. Joan Mari Irigoien

Elkar harturik, seme **eskergaiztokoak** mendekatzea erabaki zuten. Patxi Zubizarreta

Zergatik iristen da Jaungoikoaren erruki hau pertsona anker eta **eskergaiztokoengana** ere? Imanol Unzurrunzaga

Zu **eskergaiztoko** izateagatik nahi ez duzuna jasaten duzulako Ordenatzailearen justizia goratzen dut. Imanol Unzurrunzaga

Zeren, zuk nahitako izatearekin **eskergaiztoko** bazara, arrazoiz aurkituko zara nahi ez duzuna izatera, hots, zorigaiztoko izatera derrigortuta. Imanol Unzurrunzaga

Eskergaiztokoa behar nuen, ordea, neurri gabeko maitasun frogak erakutsi zizkidana hazi-ttantta batzuekin ez saritzeko, eta, eskumuturretik heltzen niola, berriro oheratu nuen. Joan Mari Irigoien

2 (adizlagun gisa)

Eskergaiztoko portatzen bada ere, Txantxangorria du kukuak lagun estimatuena. Pello Zabala

---

eskergarri *iz* eskertzekoa, eskerra merezi duena.

Laguntzaile **eskergarriak**! Herria

Lan **eskergarria** egin zuen Nazabalekin batera. Berria - Kirola

Alde banatako zumarrek itzal **eskergarria** eskaintzen diete ibiltariei. Anjel Lertxundi

Sant'Orso barruko freskura **eskergarriaren** ondoren, erreago egin dit eraso kaleko bero sapak. Berria - Kultura

Hizlariak, ordea, berean segitzen zuen, dotore eta zorroztasun **eskergarri** batez, alde egiten zutenekiko ardurarik gabe. Anjel Lertxundi

Ez da literaturaren funtzio bakarra irakurlearen jakin-mina piztea» gaineratu du Xabier Mendiguren Elizegi editoreak, «baina nobelak idazteko modu **eskergarria** bada behintzat». Berria - Kultura

Depresioa haustura bat zen, bere latzean bake une **eskergarria**, agian maitatuak sentitzen ginen momentu bakarra. Itxaro Borda

Lehenbiziko, **eskergarria** da bion gogorapena, erromantizismoak pluralean eta diferenteak daudela: ebidentzia bat, baina, ebidentzia asko bezala, gehienetan ahaztu egiten dena. Joxe Azurmendi

Eskergarria izan zen bulegari mari-ozpin ohiak bere izenez deitu -"Ekiza jauna"- eta handik eramatea. Aingeru Epaltza

Oso **eskergarria** eta meritu handikoa iruditzen zaio La Fundicion aretoak egiten duen lana. Berria - Kultura

Orain, **eskergarria** gertatuko zitzaidan Kristinaren farmazia partikularra. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
oso eskergarria (3)

---

eskerniatzaile ik **eskarniatzaile**.

---

eskernio ik **eskarnio**.

---

eskerron ik **esker 10**.

---

eskertsu *izond* eskerrez betea.

Bedi beretzat nire oroimen **eskertsu** estimazio sakonekoa. Pello Zabala

---

eskertu, esker(tu), eskertzen du *ad* **1** eskerrak eman.

Bihotzean gorde eta maita dezagun, ohora, adora, zerbitza, gorets eta bedeinka, aintza eta goraipa, handiets eta **esker** dezagun Jainko betiko goi-goiko eta gorena. Askoren artean

Albistea entzutean, asko poztu zen San Frantzisko eta, Jainkoa goretsiz eta **eskertuz**, aurpegi alaiz anaiei mintzatu eta esan zien: [...]. Askoren artean

-Bihotz bihotzetik milesker! - **eskertu** zuen Mikelek. Ramuntxo Etxeberri

Zenbaitetan, ordea, **eskertzen** ditu betiko ahots eta aharrak. Xabier Montoia

Buru mugimendu batez **eskertu** nuen morroiaren arreta. Anjel Lertxundi

Txirene irratian **eskertzen** ditugu zuen deiak, entzuleok! Paddy Rekalde

Ura **eskertuko** luke azafranak, eztiak eta ardoak, irabazi gehien dutenak direlako, eta idor eta lehorteak kalte gehien egingo lieketelako. Pello Zabala

Kafe bat **eskertuko** zenuke, bai eta hemen ematen dizuten likido uherra ere, baldin eta beroa balitz. Xabier Montoia

Esan behar izan diot gaur gauean agertu zarela nire amets batean eta esan didazula **eskertuko** zenukeela diruak obra on baterako emango balitu, kanpai berria erosteko baino. Koldo Biguri

Egun luze hauetako eguzki ordu nasaien bero sapatsuen artean, estimatuko zuen eta **eskertuko** euri xarraxtada ahultxoren bat ere. Pello Zabala

Horrenbestez, Elsbethi ohar labur bat idazten hasi nintzen, egunerokoaren oparia **eskertzeko**. Anjel Lertxundi

Zezakeen guztia ematea zuen, bada, Mathilderen babesa **eskertzeko** modu bakarra. Anjel Lertxundi

Bular oparoagoak **eskertuko** zituela pasatu zitzaion burutik, benetan pentsatzeko denborarik gabe. Ramon Saizarbitoria

Eskertzen dira beste bi beso, gure biak gutxiegi direnean. Arantxa Iturbe

Eskertua zagok aurretik, baina gerta zitekek heu hiltzea, eta ez ni! Koldo Izagirre

Gauza bat egiten soilik ez dakiket: egin didazun dohaina **eskertzen**. Juan Garzia

Bisitariek, eseri eta, **eskertu** egin zuten Irisarriren eskaintza, gose eta egarri baitziren. Felipe Juaristi

Mulvihillek esan zuen taberna eta jatetxeetako langileen osasunak **eskertuko** duela lan-tokietan tabakoa erretzea galaraztea. Berria - Gaiak

Eskertu beharrik ez zegoela erantzun nion. Bernardo Atxaga

Gose grebalariek bertako eragile askok emandako babesa **eskertu** dute espetxetik zabaldu berri duten hirugarren gutunean. Berria - Mundua

IRAko kideei borroka armatua bertan behera utzi eta bide politikoari bakarrik eustea **eskertu** zien erakundeak. Berria - Mundua

-Eskertzen dizuet, bihotzez **eskertzen** dizuet eskatu didazuen hori. Koldo Izagirre

Eskertu egiten dizut, esan zuen, zure erantzukizuna inplizituki onartu izana, egoera penagarria saihestu duzu horrela, penagarria izan zatekeen ukatzen edo egin duzuna zuritzen saiatu izan bazina. Jon Alonso

Beti **eskertuko** diot horrela jokatu izana. Joxan Elosegi

Eskertzen diat nitaz despeditzera etorri izana. Juan Garzia

Eskertu nion xehetasunik jakin nahi eza. Aingeru Epaltza

Eta, ai, nola **eskertu** nion amari egun haietan ene ondoan egon izana! Joan Mari Irigoien

Umbertok alde egin zuenean, oharturik ez niola **eskertu** nigatik egiten ari zen guztia, neure burua madarikatu nuen. Anjel Lertxundi

- **Eskertzen** dizut zintzotasuna. Migel Angel Mintegi

Ahalegina **eskertzen** nion, baina zurruta hobesten nuen nahigabeen ahanzgarri. Aingeru Epaltza

Haren eskolak metodikoak ziren oso, eta horixe **eskertzen** diot nik gehien: inurri lanean irakatsi izana. Joxerra Garzia

Asko **eskertzen** dizudan ekintza da hori. Patxi Zubizarreta

Ez ahantzi Rakelek horren maite dituen salako landareak ureztatzeaz, **eskertuko** dizu eta. Patxi Zubizarreta

IRAko kideei borroka armatua bertan behera utzi eta bide politikoari bakarrik eustea **eskertu** zien erakundeak. Berria - Mundua

Eztarriak ere **eskertu** egin zion isurkiaren berotasuna, eguraldiaren hezetasunari aurre egiteko behintzat balioko zion eta. Josu Landa

Jauregiaren erantzukizuna ene esku utzi zuen, eta eskatu eta **eskertuko** nioke, baldin berorrek ere eneganako tratua errespetatuko balu. Joan Mari Irigoien

Ur-txinta baten mesedea **eskertuko** genizuke, hori bai. Anjel Lertxundi

Ximurrak eta Josefinak, beren betaurreko beltzen gibeletik, automatek bezala erantzun zieten gure konplimenduei, **eskerturik** baino areago dena lehenbailehen bukatzeko gogoa duenaren trazan. Aingeru Epaltza

Alabari **eskertu** beharko, ez baitzuen inoiz ekarri, gu bertan ginela ez bederen. Aingeru Epaltza

Bakarrik geratu zelarik, pentsatzen jardun zuen nola **eskertu** bisitariari hain eskuzabaltasun mugarik gabea. Jose Morales

Etxera igo nintzenean, porruz eta zerbaz beteriko poltsa bat prestaturik zeukan amak, maistrari eraman niezaion, eskaintzen zidan laguntza nolabait **eskertze** aldera. Juan Kruz Igerabide

Niri dagokit **eskertzea**, eta ez zuri damutzea edo nahigabetzea. Josu Zabaleta

Galardoia **eskertzeko** hitzaldian immigrazioaren arazoaren inguruan aritu zen Annan, eta Europako herriei kanpotik datozenei ateak irekitzeko deia egin zien. Berria - Mundua

Umeak gintuan, eta lagunak ere bai: bizitzaren opari bikaina duk hori, patuari **eskertzeko** modukoa. Xabier Olarra

Gobernuari akordio bat lortzeko egin duen eginahala **«eskertu»** dio. Berria - Ekonomia

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Asko **eskertzen** diogu Gotzon Garate maisuari, halako sortak bildu zizkigunari. Pello Zabala

Hurtadok asko **eskertu** zion sinpatia hori, eta ikasle zaharraren adiskide egin zen. Josu Zabaleta

Adio, adiskide ona; anitz **eskertzen** dizut, eta hitz ematen dizut ez ditudala sekula ahantziko zuk nigana izan dituzun ontasunak oro. Jon Muñoz

Benetan **eskertzen** zidala agurtu izana. Anjel Lertxundi

Zer edo zer ikusi edo aditu baduzu, edota adituko bazenu, biziki **eskertuko** nizuke jakinaren gainean jartzea. Migel Angel Mintegi

Oroit ezazu bada Saint-Rochen eskean ari zen egun hura, eta ikuskari haren berri eman izana biziki **eskertu** zenidanekoa. Jon Muñoz

Erreginaren antzera, menpekoak sarreran bildurik aurkitu, goitik begiratu, beraien artera abiatu, beren gorazarreak isilik **eskertu** eta, beren debozio eta ahopez jartzeak onartu ondoren [...] behera jaitsi zen. Anton Garikano

Oparo **eskertuko** nikek. Juan Kruz Igerabide

"Frantziskotar Iturrien" euskarapenerako emandako diru-laguntzagatik gogoz **eskertzen** dugu. Askoren artean

Eskertu nion gogotik, herabe xamar baina pozik, afera hura nabarmenkeriaz hartu ez izana; zera esan zidan sinpleki: hire txanda duk! Joxe Austin Arrieta

Nik bihotzez **eskertu** nion eskaintza, zeren urrun baino urrunago bainengoen ni orduan atrizionezko edo kontrizionezko damutik, jaun André...! Joan Mari Irigoien

Pentsa ezak amak bihotzez **eskertuko** liakeela oroi-ekintza xume horretan parte hartzea. Txillardegi

Baina bihotz-bihotzez **eskertuko** nizuke Mr Bunburyri eskatuko bazenio, nire partetik, ez dadila, mesedez, larunbatean ostera gaizkitu, zure eskuetan utzi baitut nire musika-saioa nire ordez prestatzeko ardura. Antton Olano

Ironiaz **eskertu** genien begiramena. Karlos Linazasoro

Zurea arras baliotsua zait, eta ez dakit nola **eskertu** nigatik egiten duzun guztia. Jon Muñoz

Garai batean izugarri **eskertuko** zuen hori ere bertsozaleak. Andoni Egaña

Behin eta berriz **eskertu** nion. Joxean Agirre

Eta damak behin eta berriro **eskertu**, eta aitaren batean hasiko dira solasean. Anton Garikano

Santuak sendatzeko grazia eman zionean, Federicok, behar bezala **eskertu** beharrean, lau birao egotziz **eskertu** zion. Pello Lizarralde

3 *eskertzekoa izan*

Eskertzekoa zen inguru-mingururik gabe solastu ahal izatea, ahotik ahora. Aingeru Epaltza

Eskertzekoa duk lagunez gogoratzea! agurtu zuten picket-ekoek eskuan kartoizko kutxa zapala zekarren gaztea. Xabier Montoia

Eskerrik asko deitzeagatik, Amaia, halako deiak **eskertzekoak** dira, zelan ez. Paddy Rekalde

Soniaren desio eta asmo onak **eskertzekoak** baziren ere, Sarak garbi ikusten zuen bere bakardade hura bakarrik ibili beharrekoa zela. Joan Mari Irigoien

Gainera, hire jarrera **eskertzekoa** dun. Eneko Bidegain

Eskertzekoa da horrelako gizon garbiaren adiskidantza doakoa. Hasier Etxeberria

Lan bikaina eta **eskertzekoa** egin izan dute, benetan! Pello Zabala

4 (era burutua izenondo gisa)

Oparitxo bat da, berak xendratutako preso **eskerturen** batek emana. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalegina eskertu (8); **asko eskertu** (8); **aukera eskertu** (4); **ausardia eskertu** (3); **babesa eskertu** (20); **babesa eskertu zuen** (9); **baina eskertu** (6); **baina eskertu egin** (3); **batekin eskertu** (4); **batez eskertu** (10); **behar bezala eskertu** (3); **benetan eskertu** (4); **bereziki eskertu** (6); **bereziki eskertu nahi** (3); **berriro eskertu** (3); **berriz eskertu** (3); **beti eskertu** (3); **bezala eskertu** (3); **bihotzez eskertu** (14); **biziki eskertu** (20); **biziki eskertu du** (3); **biziki eskertu zuten** (5); **denak eskertu** (4); **ditu eskertu** (3); **dituzte eskertu** (4); **egindako lana eskertu** (8); **eginiko lana eskertu** (6); **elkartasuna eskertu** (9); **eman izana eskertu** (3); **emandako babesa eskertu** (3); **ere eskertu** (15); **ere eskertu behar** (3); **eskertu behar** (42); **eskertu behar ditugu** (7); **eskertu behar ditut** (3); **eskertu behar zaio** (6); **eskertu beharko** (8); **eskertu beharrean** (3); **eskertu beharrekoa** (3); **eskertu die** (3); **eskertu dio** (10); **eskertu diot** (4); **eskertu diote** (3); **eskertu diozu** (5); **eskertu ditu** (31); **eskertu dituzte** (12); **eskertu dituzte han** (3); **eskertu du** (25); **eskertu dugu** (3); **eskertu dute** (13); **eskertu egin** (68); **eskertu egin behar** (5); **eskertu egin beharko** (3); **eskertu egin nahi** (3); **eskertu egin nion** (6); **eskertu egin nuen** (3); **eskertu egin zion** (6); **eskertu egin zituen** (3); **eskertu egin zuen** (19); **eskertu egin zuten** (4); **eskertu egingo** (4); **eskertu egiten** (22); **eskertu egiten da** (3); **eskertu egiten diot** (3); **eskertu egiten dizut** (4); **eskertu egiten dute** (3); **eskertu ere** (10); **eskertu eta** (26); **eskertu izan** (3); **eskertu nahi** (53); **eskertu nahi diet** (3); **eskertu nahi ditu** (6); **eskertu nahi dugu** (5); **eskertu nahi dute** (3); **eskertu nahi izan** (15); **eskertu nahian** (4); **eskertu nion** (33); **eskertu nuen** (6); **eskertu ondoren** (3); **eskertu ostean** (3); **eskertu zidan** (8); **eskertu zien** (12); **eskertu zieten** (3); **eskertu zion** (32); **eskertu zioten** (6); **eskertu zituen** (19); **eskertu zituzten** (5); **eskertu zizkion** (5); **eskertu zuen** (102); **eskertu zuen atzo** (5); **eskertu zuen eta** (5); **eskertu zuten** (28); **eta berriz eskertu** (3); **eta biziki eskertu** (3); **eta eskertu** (38); **eta eskertu egin** (12); **eta eskertu nahi** (3); **eta eskertu zuen** (4); **ez eskertu** (3); **gogotik eskertu** (3); **hartzea eskertu** (4); **hemen eskertu** (4); **hori eskertu** (3); **izana eskertu** (22); **izana eskertu behar** (3); **izana eskertu nahi** (3); **izana eskertu zion** (6); **izatea eskertu** (4); **jarrera eskertu** (6); **jasotako babesa eskertu** (5); **jasotako elkartasuna eskertu** (3); **konfiantza eskertu** (3); **laguntza eskertu** (19); **laguntza eskertu nahi** (3); **laguntza eskertu zuen** (10); **laguntza eskertu zuten** (3); **lana eskertu** (27); **lana eskertu nahi** (5); **lana eskertu zion** (3); **lana eskertu zuen** (7); **nahi dituzte eskertu** (3); **nik eskertu** (4); **nola eskertu** (10); **ohoratu eta eskertu** (3); **oparia eskertu** (4); **sostengua eskertu** (6); **sostengua eskertu zuen** (4); **zer eskertu** (4)

aski eskertuko (3); **asko eskertuko** (5); **asko eskertuko du** (4); **baina eskertuko** (3); **bat eskertuko** (3); **behar bezala eskertuko** (3); **benetan eskertuko** (5); **beti eskertuko** (12); **beti eskertuko diot** (6); **bezala eskertuko** (3); **bihotz bihotzez eskertuko** (3); **bihotzez eskertuko** (5); **biziki eskertuko** (11); **biziki eskertuko nizuke** (3); **denak eskertuak** (3); **denak eskertuak izan** (3); **egitea eskertuko** (3); **ere eskertuko** (5); **eskertua izan** (7); **eskertua izan da** (4); **eskertuak izan** (13); **eskertuak izan dira** (5); **eskertuak izan ditela** (4); **eskertuko diot** (8); **eskertuko diot horrela** (4); **eskertuko dizu** (5); **eskertuko dizut** (8); **eskertuko du** (11); **eskertuko dute** (9); **eskertuko genizuke** (4); **eskertuko genuke** (6); **eskertuko luke** (9); **eskertuko lukete** (4); **eskertuko nikek** (4); **eskertuko nizueke** (5); **eskertuko nizuke** (24); **eskertuko nuke** (3); **eskertuko zuen** (3); **eskertuta gaude** (3); **eta eskertuko** (9); **eta eskertuko nizuke** (3); **eta eskertuz** (4); **goretsiz eta eskertuz** (3); **hori beti eskertuko** (3); **nola eskertuko** (5); **oso eskerturik** (3); **oso eskertuta** (3); **zinez eskertuko** (3)

aintzinetik eskertzen (5); **antolatzaileek eskertzen** (7); **antolatzaileek eskertzen dituzte** (7); **asko eskertzen** (28); **asko eskertzen da** (5); **asko eskertzen diot** (3); **asko eskertzen du** (4); **aukera eskertzen** (3); **baina eskertzekoa** (3); **baina eskertzen** (3); **benetan eskertzekoa** (3); **benetan eskertzen** (12); **benetan eskertzen dizut** (5); **berriz ere eskertzen** (3); **bihotz bihotzez eskertzen** (5); **bihotzetik eskertzen** (5); **bihotzez eskertzen** (17); **bihotzez eskertzen dizut** (6); **biziki eskertzen** (24); **biziki eskertzen du** (3); **biziki eskertzen dute** (3); **denak eskertzen** (4); **denak eskertzen dituzte** (3); **elkartasuna eskertzeko** (3); **ere eskertzen** (8); **erosle guziak eskertzen** (3); **eskertzeko asmoz** (5); **eskertzeko eta** (4); **eskertzeko modukoa** (4); **eskertzekoa da** (78); **eskertzekoa da benetan** (3); **eskertzekoa da elkarri** (3); **eskertzekoa da hori** (8); **eskertzekoa dela** (4); **eskertzekoa duk** (4); **eskertzekoa izan** (5); **eskertzekoa zela** (3); **eskertzekoa zen** (10); **eskertzekoak dira** (8); **eskertzen ahal** (3); **eskertzen al** (4); **eskertzen da** (21); **eskertzen dela** (3); **eskertzen den** (3); **eskertzen diat** (9); **eskertzen diet** (6); **eskertzen dio** (3); **eskertzen diodala** (3); **eskertzen diogu** (4); **eskertzen diot** (24); **eskertzen dira** (4); **eskertzen ditu** (36); **eskertzen dituela** (5); **eskertzen ditugu** (11); **eskertzen ditugu parte** (3); **eskertzen ditut** (5); **eskertzen dituzte** (24); **eskertzen dituzte aintzinetik** (4); **eskertzen dizu** (3); **eskertzen dizudan** (5); **eskertzen dizuet** (14); **eskertzen dizut** (43); **eskertzen du** (19); **eskertzen duela** (4); **eskertzen dugu** (22); **eskertzen dut** (12); **eskertzen dute** (12); **eskertzen duten** (4); **eskertzen gaituzte** (3); **eskertzen nion** (4); **eskertzen zaituzte** (3); **eskertzen zion** (5); **eskertzen zuen** (8); **eskertzen zutela** (4); **eta asko eskertzen** (6); **eta bihotzez eskertzen** (3); **eta biziki eskertzen** (3); **eta eskertzekoa** (23); **eta eskertzekoa da** (19); **eta eskertzen** (22); **eta eskertzen da** (4); **eta eskertzen dugu** (3); **eta hori eskertzekoa** (7); **familiak eskertzen** (4); **familiak eskertzen ditu** (4); **guziak eskertzeko** (3); **guziak eskertzen** (14); **guziak eskertzen ditu** (4); **guziak eskertzen dituzte** (6); **hori asko eskertzen** (3); **hori eskertzeko** (3); **hori eskertzekoa** (9); **hori eskertzekoa da** (5); **hori eskertzen** (8); **hori oso eskertzekoa** (3); **horregatik eskertzen** (3); **horrela eskertzen** (3); **izana eskertzeko** (3); **izugarri eskertzen** (9); **laguntza eskertzeko** (3); **laguntza eskertzen** (4); **lana eskertzeko** (3); **lana eskertzen** (3); **nik eskertzen** (3); **nola eskertzen** (4); **oso eskertzekoa** (4); **oso eskertzekoa da** (3); **zenbat eskertzen** (6); **zinez eskertzen** (3)

---

eskertxar ik **esker 11**.

---

eskertza *iz* eskertzea.

Horra non **eskertzak** berriz hasi diren, baina ez ziren jadanik arestian bezain bihotz-erdiragarriak: premiak ondorio benetakoa sortu zuen, ondorio handia; gainerakoa ez zen esker oneko eta harridurazko adierazpen soil bat baizik, balio urriko dohainen truk. Jon Muñoz

Milan-San Remon lan ona egitea, taldeko buruen **eskertza** jasotzea ezinezkoa al da? Berria - Kirola

Mirespena erakusteko egiten zituen omen-obrak Txillidak, adiskidantza eta maitasuna agertzeko edo **eskertza** adierazteko ere egiten zituen omenaldiak. Berria - Kultura

Zer nolako **eskertza** malkoak isurtzen ziren familia hartako aitzindari zaharraren begietarik, eta nola edertzen zioten aitalehen aurpegi hura, etsipenaren zantzu krudelak instant bat lehenago arras higuingarri bihurtua. Jon Muñoz

---

eskertzar ik **esker 11**.

---

eskertze *iz* eskerrak ematea.

Desioa sedukzioan azaleratzen dugu, maitasunezko musu samurretan, iraulkatze grinatsuetan, laztan hezeetan, plazeren sinfonian, elkarrekin botatzen dugun izerdian, **eskertze** ekintzetan, oroitzapenetan eta izandako amodioetan. Luis Elberdin

Horrek bultzatu zuen, etxeratu ostean eta gomuta garaian, **eskertze** ohar batzuk idaztera, neskak izandako portaera onagatik eta bere jarrera pertsonala barkatzeko eskatuz. Joxemari Iturralde

· Etxera igo nintzenean, porruz eta zerbaz beteriko poltsa bat prestaturik zeukan amak, maistrari eraman niezaion, eskaintzen zidan laguntza nolabait **eskertze** aldera. Juan Kruz Igerabide

eskerzale *iz* eskertu zalea dena.

Zeren ez baitzuen noski sinetsiko obispoaren erretolika **eskerzale** zuri hori guztia. Inazio Mujika Iraola

---

esketx ik **sketch**.

---

eskezale *iz* eskekoa.

Horrelako **eskezale** minberak izan ote du saria? Herria

---

eski **1** *iz* xafla lau eta estua, elur gainean irristatzeko erabiltzen dena; eskiak erabiliz elur gainean irristan ibiltzean datzan kirola.

Elur pixka bat bota bezain laster, larunbat arratsaldean Clavièresera abiatzen zen, **eskiak** bizkarrean hartuta. Fernando Rey

Pista baten goialdean zeuden: **eskiak** ondo paralelo, beren buruak pikoa zirudien maldan behera botatzeko prest. Jon Muñoz

Ikasturteak gainditzea zitzaion axola, eta igandean **eskien** gainean edo haitzetan gaindi ibiltzea. Juan Garzia

Banderatxo batean **eskiak** gurutzatu eta lurrera jausi zen arte. Berria - Kirola

Nire **eskien** kantoek ez diote ondo heltzen elurrari jiratzerakoan. Jon Arretxe

Ze pena **eskiko** denboraldia bukatzeko egotea, ezta? Jon Arretxe

Eskia egiten ari dela entzun dut. Alberto Ladron Arana

Aste buru luzea baliatuz, Andoain eta Altsasuar Unai Otamendi eta Joxean Azkue ostiral goizean ateraiak ziren Anayet mendira **eskiz** igaiteko. Herria

Gaur egungo **eskiak** plastikoz egindako artelanak dira: arinak, bizkorrak eta ederrak dira. Berria - Gaiak

Halako gainestaldurak **eskien** irristakortasuna eta abiadura areagotzen ditu. Berria - Gaiak

Futbolean, golfean, tenisean, motokrosean, **eskian** eta squashean lehiatu zen gidatzen jarri aurretik. Berria - Kirola

Argazkian, bere semea, mendiko soldadu jantzian eta bi **eskiri** zutik eusten ziela. Anjel Lertxundi

Gure etxetik alde eginez geroztik ez zuen berriz oinetan **eskirik** jarri. Fernando Rey

2 (izenonodo eta izenlagunekin)

Eski artistikoa, izotz hockeya, patinaje artistikoa. Berria - Harian

Akrobaziak eta **eski** alpinoa uztartzen ditu **eski** artistikoak, eta esparru horretan Euskal Herriak badu zer erranik. Berria - Kirola

Alde batera utzi behar dira egurrezko 20 xafla elkarri itsatsiz egindako **eski** ez-elastikoak. Berria - Gaiak

Aitak **eski** zaharrak eta lokarri herdoilduak eramanarazten zizkiolako. Fernando Rey

Izotza ez da laua, izotz gaina oso okerra da hegazkinentzat ere, **eskidun** abioiak ere ezin izango du lurreratu. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Ardatz" itxurako **eski**-galtza haiek. Joxan Elosegi

Eski-bota zurrun eta pisu haiek. Joxan Elosegi

Hurrengo egunean, eliza bateko kanpandorre bat konpontzen ari zen langile batek **eski**-ohol bat topatu zuen teilatu gainean. Josetxo Azkona

Metroak, hiriko trafikoa arintzeaz gainera, ia **eski**-pistetan utziko omen du jendea. Anjel Lertxundi

Izabako Udaleko Larra Taldeak salatu du Erronkariko **eski** eskolako arduradunek Larran egin nahi duten **eski** estazioari buruzko eztabaida egin dutela haurrentzako **eski** kanpainan parte hartzen duten neska-mutilen artean. Berria - Euskal Herria

Nagusiotako batzuk, nagusietan nagusienak, Suizan daude bilduta egunotan, Davos izeneko **eski**-lekuan, Alpeetako gailur batean, zeruan gora, munduaren gainean. Joxerra Garzia

Candanchungo **eski** estazioan (Espainia), Gasteizko bizilagun bat hil zen atzo, Ana Isabel Gea, eskiatzen ari zela. Berria - Euskal Herria

Negua, eskiatzeko, baina ez **eski** gune antolatu jendartetsuetan, destaina lakonikoz egiten baitzien muzin. Juan Garzia

Bidaiaren bigarren zatia **eski** zeharkaldi bat izango da Bide Erreala deituriko inguruetan. Berria - Kultura

Hor egiten dira elurrean munduko **eskia** xapelketak. Herria

Nazioarteko **Eski** Federazioak (FIS) bost eguneko zigorra ezarri die hamabi eskiatzaileri. Berria - Kirola

Munduko **eski** txapelduna. Berria - Kirola

Beste domina bat, bosgarrena, lortu zuen Lizarrako **Eski** Taldeak. Berria - Kirola

Candanchú-ko elur eta **eski** enpresa batean, lanpostu zoragarrixa eskaini ei deutsoe aitteri. Txillardegi

Taldekako **eski** jauzietan irabazitako urrezko domina. Berria - Kirola

Eski jauzietan, banakakoa (emakumezkoetan). Berria - Kirola

Ildo beretik, **eski**-jauzilaria airean erabat desegin zela esaten duenik ere bada oraino. Josetxo Azkona

Gustatzeagatik, urtezahar eguneko ajea pasatzen laguntzen diguten Garmish-Partenkirchen-go **eski** salto txapelketan jauzilari euskaldunak ikustea ere gustatuko litzaiguke. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iraupen **eskia**: Taldekako esprinta (emakumezkoak). Berria - Harian

Eski jauzietan, banakakoa (emakumezkoetan); iraupen **eskian**, 15 eta 30 kilometroko jazarpen proban (gizonezkoak eta emakumezkoak). Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alle scale eski (3); **duten eski** (3); **eski alpinoa** (28); **eski alpinoan** (6); **eski alpinoko** (3); **eski alpinoko bost** (3); **eski artistikoa** (10); **eski artistikoko** (10); **eski artistikoko taldeak** (3); **eski estazioa** (7); **eski estazioa egiteko** (3); **eski estazioak** (4); **eski estazioan** (27); **eski estazioan bukatu** (3); **eski estazioan bukatuko** (6); **eski estazioaren** (8); **eski estazioetan** (3); **eski estaziora** (4); **eski gune** (3); **eski jauziak** (8); **eski jauzietan** (3); **eski pista** (4); **eski pistetan** (3); **eskia raich** (3); **eta eski** (4); **eta iraupen eskia** (3); **finalak iraupen eskia** (6); **iraupen eskia** (30); **iraupen eskian** (8); **larrako eski** (6); **larrako eski estazioaren** (4); **larran eski** (3); **larran eski estazioa** (3); **munduko eski** (3); **nahi duten eski** (3); **pirinioetako eski** (3); **scale eski** (3)

---

eskiatu, eskia(tu), eskiatzen du *ad* eskiekin irristatu.

Ehiztari eta arrantzale franko dago, baina Bennettek nahiago izaten du basoan oinez ibili, eskalatu edo mendian zehar **eskiatu**. Xabier Olarra

Baina berak argi utzi du egin dizkioten elkarrizketa guztietan meritua biona dela, hots, gidaririk gabe ezin duela **eskiatu**. Berria - Kirola

Ez dut uste berriro **eskiatuko** duenik. Berria - Kirola

Ivica Kostelic kroaziarrak, munduko txapelduna eslalomean, ez du gehiago **eskiatuko** aurtengo sasoian. Berria - Kirola

Harekin lasai ederrean **eskiatzen**, denbora pasatu omen zitzaion, eta kasernara itzultzea ahaztu. Fernando Rey

-Zangoa hautsi, atzo, **eskiatzen** ari zelarik. Daniel Landart

Eski-irakasle batek bezala daki **eskiatzen**! Fernando Rey

Eta **eskiatzen** ere zoragarri daki! Fernando Rey

Oinetako bat ere ezin dut hanketan sartu, **eskiatzeko** botak salbu. Josu Zabaleta

Erzurum ia bi mila metroko altueran dago, eta elurrez bete-beterik ageri dira inguruko mendi soil eta garaiak, **eskiatzeko** pistak ere badituztenak. Jon Arretxe

Lanaren truke zigilu ofizialeko beroki, **eskiatzeko** galtza eta eskularruak jasoko dituzte. Berria - Harian

Badago beste ezberdintasun garrantzitsu bat: Tombak **eskiatzeko** berezko dohaina zuen. Berria - Kirola

Gazteriari dagokion guztia Udalaren esku dagoela dio: **eskiatzera** joateko ateraldiak, antzerki kurtsoak eta abar. Berria - Euskal Herria

Oso ongi **eskiatzen** zuen, estilorik gabe omen, baina sekulako ausardiaz eta gehiegi nekatu gabe. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskiatzen ari zela (3); **eskiatzera joateko** (4); **ongi eskiatzen** (3)

---

eskiatzaile *iz* eskiatzen duen pertsona.

Bilboko haur bat larri zauritu da Astunen, **eskiatzaile** batek harrapatuta. Berria - Euskal Herria

Austriako hiru **eskiatzaile** eslalomeko podiumean. Berria - Kirola

Hamabi **eskiatzailek** gainditu dute hemoglobina tasa. Berria - Kirola

Eskiatzailearen begiak erradiazio ultramoretik babesteko erabiltzen den sustantzia material plastikoak berak dauka. Berria - Gaiak

eskiatzaileek askoz erradiazio gehiago jasotzen dute eguzkia elurretan islatzen delako. Berria - Gaiak

Haizea bortitzagoa zenean, **eskiatzaileek** jauzia egiten dutenean bezala, etzaten nintzen aurrerantz eta airean hegan nindoan irudipena izaten nuen. Joxean Agirre

Arnold Taads liburuko beste gizona, notaritza utzi, Kanadara basozain joan, eta Suitzako bailara bakartian **eskiatzaile** txapeldun ohia bezala erretiratua biziko da. Berria - Kultura

Hodei lurrita Eric Villalon **eskiatzaile** itsuaren gidari gisa aritu zen Turingo Neguko Paralinpiar Jokoetan Ordutik, ezer gutxi egin zuten **eskiatzaile** italiarrek. Berria - Kirola

Bi probetan lehen bost postuetan lau **eskiatzaile** austriar sailkatu ziren. Berria - Kirola

Neguko Olinpiar Jokoetan domina gehien irabazi dituen emakumezko **eskiatzailea** bilakatu. Berria - Kirola

Tentel itxurako **eskiatzaile** -koadrila bat elurretan behera ziztu bizian. Jon Arretxe

---

eskidun *izlag* eskia duena.

Izotza ez da laua, izotz gaina oso okerra da hegazkinentzat ere, **eskidun** abioiak ere ezin izango du lurreratu. Joseba Sarrionandia

---

eskierki *adlag* eskuarki.

Irlandako Antzerki Nazionala deritzon horretan, Brian Friel izan da, **eskierki** , Euskal Herrian mirarik handiena izan duen egilea.Horrela, eta Charles artean gera dadin, Charles Lynch (1736-1796) jotzen da, **eskierki** , lintxatu eta lintxamendu berben aitatzat. Iñigo Aranbarri

---

eskifaia *(orobat **eskipaia** g.er.)* **1** *iz* ontzi, hegazkin edo kideko baten gobernatzeaz eta zerbitzuaz arduratzen diren pertsonen multzoa.

Eskifaia 175 lagunek osotua zen. Edorta Jimenez

Ontzian 27 turista alemaniar eta **eskifaia** zihoazen. Berria - Mundua

Eskifaia , nekaturik, gure ontzi herrenari ahal zen moduan nabigarazten saiatzen zen, Herkulesen dorrearen muturra noiz gaindituko eta portura noiz iritsiko. Edorta Jimenez

Hainbat bertute, sei gaileta eta ur pitxer batekin itsaso zakarraren menpe dagoen **eskifaia** salbatuko zuketenak -tinkotasuna eta zuzentasuna, zuhurtzia, saiatzea, trebezia, etorri zitzaizkion laguntzera. Anton Garikano

Eskifaiak almadiari helduta jarraitzea lortzen bazuen, naufragoak aintzira barea igerian zeharkatu eta palmondoz horniturikо uharte haietako batera iritsi ahal izango ziren bizirik. Iñaki Mendiguren

Itsasontzi grisa izango da, mamuek osatutako **eskifaiarekin** . Agustin Otsoa

Gero bere itsasontziari buruz hitz egiten hasi zitzaigun, **eskifaiaz** , Kuwaitez, Egiptoz, ezagututako portu eta hiriez. Iban Zaldua

Diruarena aditurik, **eskifaiak** beste adore bat hartu zuen. Edorta Jimenez

Eskifaian diren gure laguntzaileek platinoaren kontrabandoa antzeman baldin badute euren poltsen barruan adierazirik utziko dute, platinoa non gordea den edo nork aldean duen seinalatuz. Edorta Jimenez

Smee kontramaisu irlandarra, ohi ez bezalako gizon jeniala, labankadak ematen zituena, nolabait esateko, inor mindu barik eta, gainera, Kako-oker kapitainaren **eskifaiako** disidente bakarra. Julen Gabiria

Egunkariak banatzen hasi da **eskifaiako** sehia. Txillardegi

Igande zoriontsua bizi izan dute Donibane Lohizuneko "Ur Joko" **eskifaiako** arraunlariek. Herria

Pozarren zeuden Movistar ontziko **eskifaiako** kideak atzo. Berria - Kirola

Mateoren aginduetara, lehorrean ziren **eskifaiako** besteak, halako zereginetan denak ni baino askoz zailduagoak, ekiteko prest. Edorta Jimenez

Eskifaiako inork ez du bista jaso nahi, antxeten agurrak itzuliaren zalantza dakarkigulako begietara. Koldo Izagirre

Ze, egia, **eskifaiako** gizon zailduenak, itsasoaren enbatek barik, Drakeren itzalak beldurtzen zituen,ingelesaren ordura arteko azken kolpea gogoan. Edorta Jimenez

-Hau bukatu duk, amigo -esan zidan itsasontziaren **eskifaiako** zaharrenak-. Hasier Etxeberria

Halako batean, ordea, musika bat entzun zuten goletako **eskifaiakoek** , eta marinelek, izuturik, behera jo zuten, beren ganberara. Felipe Juaristi

Gauak kabina barruan pasa genituen, hotzez dardar, beroki eta artilezko burusien azpian; **eskifaiakoek** tea prestatzen ziguten, urik aski izan zen bitartean. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

«Maiatzeko Discovery-ren misioarekin ISSko **eskifaia** egonkorra hiru astronautakoa izatea espero dute bazkideek», zioen Errusiako espazio agentziako atzoko agiriak Ganberetara jaitsi eta afaltzen harrapatu genuen **eskifaia** osoa. Berria - Gaiak

Ontzia hondoratu eta **eskifaia** guztia ito egin zen. Pako Aristi

Eskifaia berria ematen genuen, zinez, Mihurubikoaren agindua bete genuenok. Edorta Jimenez

Bada, Pilar ontzia Q-boat legez erabiltzeko **eskifaia** egokia hautatu eta gero horixe eskatu du Ernest Hemingwayk; militar zereginetako atontzea. Edorta Jimenez

Lemari ero batek gidatu belaontzi mastagabetuko txo, **eskifaia** hordi batek etengabe ipurzulatua. Aingeru Epaltza

Bastosek bazekien Atlantiko hegoaldeko **eskifaiarik** onenetariko bat zuela. Jon Muñoz

3 (hitz elkartuetan)

Eurek ezer ez dakite Kanarietan **eskifaia** aldaketa izan zelako. Berria - Euskal Herria

eskifaiakide *(orobat **eskifaia-kide**) iz* eskifaiako kidea.

Bere lepotik barre egiten zutela eta, kapitainak debekatu egin zien **eskifaiakideei** istorioak irakurtzen jarraitzea. Harkaitz Cano

Eskifaiakideetako askok utzi egin zuten kapitaina. Harkaitz Cano

Ni neu izurdeak ikusita nago hemendik gertu, azoka parean, honaino saltzera etortzen ziren arrantzaleei jausitako arrainen bila, eta baita submarino aleman bat ere, Ibarrekolanda gaineko kanposantuan euren **eskifaia**-kide hil berri bat lurperatzeko asmoz... Paddy Rekalde

---

eskifaiburu *iz* eskifaiaren burua.

Ontzia ardo-anforaz kargaturik zihoan; nagusiaz beste, bazen **eskifaiburu** bat, lau marinel eta bankuetara kateaturiko hogei arraunlari. Juan Garzia

Kapitainari eta **eskifaiburuari** bina parte zegozkien; maistruari, sokadunari eta kanoizainari, bat eta erdi bakoitzari; beste ofizialei, bat eta laurden. Juan Garzia

---

eskife *iz* txalupa txikia.

Keanek eta bere lagunak -Rossiter sarjentuak- **eskife** bat konfiskatu eta hirurak heldu ziren uretatik joanda Mobile Bayra. Anton Garikano

---

eskilara ik **eskailera**.

---

eskilaso *iz* belearen familiako hegaztia, hegaletan zerrenda urdinak dituena, zaratatsua, ezkurrez eta elikatzen dena *(Garrulus glandarius).*

Hitz egin nahi dut ekainaren hasierako eguraldiaz, harmoniaz eta baretasun dohatsuaz, zuhaitzen hosto berdeen aurretik ziztu bizian igarotzen ziren txantxangorriez, txonta horiez eta **eskilaso** luma-urdinez. Oskar Arana

---

eskilin *iz* **

Gaupasa egin diten eta ez zeukaten **eskilinak** baino buru gehiago! Pako Aristi

---

eskillara ik **eskailera**.

---

eskimal *(orobat **eskimo** g.er.) iz* Ameriketako eta Groenlandiako iparburuko lurraldeetako biztanlea; biztanle horiei dagokiena.

Eskimalek izugarri trebatu eta espezializaturiko urte-zikloa lortu zuten, Arktiar itsasertzetako bizimodura egokitua. Iñaki Mendiguren

Halako orrialdetik tigre marratuak begiratzen zigun, beste orrialde batean familia **eskimalak** igluaren ataritik so egiten zigun. Joseba Sarrionandia

Polinesiarrak, **eskimalak** eta nomadak. Iñaki Mendiguren

Estatu Batuek aipatutako base hori ezarri zuten Thulen, oso base handia, munduan dagoen handienetakoa, eta bertako hegazkinek egiten zuten zarata zela eta, hartz txuri eta mortsek aldegin egin zuten handik; ondorioz, han bizi ziren **eskimalak** modus vivendi-rik gabe geratu ziren, eta irlako gobernuak den-denak Gronedalera eramatea erabaki zuen. Bernardo Atxaga

"Txakur bikainak dira, erdi **eskimal** erdi malamut -esan zuen-; bi ekartzea pentsatu nuen, bakoitzak laguna izan zezan. Xabier Olarra

---

eskimo ik **eskimal**.

---

eskin ik **izkina**.

---

eskinoso *(orobat **eskinuso** eta **eskiñosu**) iz* eskilasoa.

Eskinosoen zalaparta besterik ez zuen entzuten orduan. Imanol Zurutuza

Goian zirela **eskinoso** baten karranka ez oso urruna iritsi zaie, beheitiago zozo izuti bat altxatu da sastraka artetik. Pello Lizarralde

Zergatik aukeratzen ote du beleak, miruak, sapeltsak, **eskinusoak**, kristaurik igo ez liteken arbola, kabia egiteko orduan? Patziku Perurena

---

eskiñosu ik **eskinoso**.

---

eskinuso ik **eskinoso**.

---

eskipaia ik **eskifaia**.

---

eskirol *iz* greba hausten duen langilea.

Euskalduna izan edo extremeñoa izan, bi pezetagatik lan egiteko prest dagoena **eskirola** duk. Koldo Izagirre

Eskirolak dira, eta euren lana egin beharrean, zilegi dena egin beharrean, lankideen lanpostuak bete eta dirua barra-barra irabazten ari dira, gauez eta asteburuetan lan eginda. Berria - Ekonomia

Patronalari azpikontratatzen uzten diote, lanuzteetan **eskirolak** erabiltzen, inbertsioak itzuli gabe alde egiten, eta, gainera, laneko segurtasunarekin jokatzen. Berria - Ekonomia

Bestalde, patronalak beraien tesiekin bat egin duten **«eskirolen** artean sariak banatzen» dituela nabarmendu zuen.Langile Batzordeko ordezkariaren esanetan, ez du

zentzurik ia zortzi hilabete greban eman ondoren, akordiorik gabe lanera itzultzeak. Berria - Ekonomia

Pribatizazioen osteko gatazketatik kanpo geratzeko printzipioari eutsi gabe, **eskirolen** kamioneta Irungo udaltzaingoaren patruilak babestuta joan zen. Berria - Euskal Herria

«**Eskirol**» oihu artean joan ziren sindikalistak, behin ugazabak ateak itxi ostean. Berria - Ekonomia

---

eskisito *iz* guztiz fina.

Bilbainismo kulto, urrun, harrigarri, exotiko eta **eskisito** hori. Hasier Etxeberria

Andrea, dio berak, hogeita bost eta berrogei urte artean zabaltzen den larrosa paregabe hori, zibilizazio extremoaren, zibilizazio elegantearen emaitza **eskisito** eta bitxia da eta hirietan bakarrik ematen da. Koldo Izagirre

---

eskitiar ik **eszitiar**.

---

eskitopolistar ik **eszitopolistar**.

---

eskiulatar *izond/iz* Eskuliakoa; Eskuilako biztanlea.

Bazkaria bururatzean hartu dituzte ohorezko medailak: Ramon Iparragirre Eizagirre Hegoaldekoak, Gerard Pierrou, Jean Baptiste Irigoin eta Gaston Gazo Pauetarrak, Maurice Abadie eta François Susbielles Ortestarrak, Albert Biscay eta Pierre Hourçourigaray **Eskiulatarrak**. Herria

Lehentxeago Pierra Topet-Etxahun Barkoxekoa bost urtez preso egonik zen, ontsa merexirik: **Eskiulatar** bat aizkoraz jo züan, horrek zor baten saria galtatzen zeiolakoz, etxalte bat iruzur egitez bildu, balinba bere aüzoa tiroz kolpatü (gizonez tronpatürik, bena norbaiten eho nahiz betiere), eta etsaiaren borda bat erre. Herria

Sortzez **eskiulatarra**, errejent egonik zen Barkoxeko eskola püblikoan, emaztearekin, hau larraintarsa.Olorue zuen sorlekua eta nire mintzairan hainbat gauza errateko gauza zen, gaztetako feria egunetan barkoxtarrei eta **eskiulatarrei** ikasiak. Herria

Hori erakutsi digute **Eskiulatarrek**, esku-huska arizan baitira lau mutiko erne eta dantzan neskak eta mutikoak, hain ederrak diren Xiberoko dantzetan. Herria

---

eskizoafasia *iz* ezkizofrenikoaren hizketa modua.

Arantxak jasoko du, edo Imanolek topatuko du, eta irakurtzen ez diren liburuen apalean utziko du, bestela erietxean **eskizoafasiaren** ondorio anonimotzat geratuko da testu hori. Joseba Sarrionandia

---

eskizofrenia 1 *iz* nortasunaren bestelakotzearekin, haluzinazioekin eta errealitatearekiko harremanaren galtzearekin zerikusia duten buru eritasunen multzoa.

Pentsatzen hasi beharko lukete Izadiak edo Jainkoak zertarako sortu ote dituen autismoa, psikosi maniako-depresiboa, **eskizofrenia** eta halako gaixotasun lazgarriak. Xabier Olarra

Eskizofrenia: Paranoiarekin batera buru gaixotasunik larriena da. Berria - Euskal Herria

Eskizofrenia du haren 30 urteko alabak. Berria - Harian

Laster, ordea, medikuek **eskizofrenia** zuela esan zioten. Gotzon Garate

Hogeita bat urterekin bere buruaz beste egiten saiatu ondoren, **eskizofrenia** diagnostikatu zioten eta ondorengo hamar urteak ospital sikiatrikoetan igaro zituen. Berria - Kultura

Eskizofreniaren ezaugarri bat ez ote da jendea kontra duzula pentsatzea? Gotzon Garate

Ez da inbidia, ez da herra, ez da gorrotoa, ez eta [...] metroko bagoietan bizi eta **eskizofreniaren** aurkako pastilak hartzeari uko egin dioten homelessen erokeria. Harkaitz Cano

Eskizofreniak eldarnioak sorrarazten ditu. Fernando Morillo

Eskizofrenian erortzeko arriskua ikusi zuela. Harkaitz Cano

Eskizofreniak asko laguntzen du Hölderlinen poesia eta haren mistizismoa ulertzen. Anjel Lertxundi

Ez duzu nozitzen **eskizofreniarik**? Karlos Linazasoro

Gauza jakina da **eskizofrenia** dela euskaldunon habitat naturala eta bertan igeri egiten ongi ikasiak gaudela, hiru fasetako prozesuan: lehenengoan, gauzak buruz pentsatzen eta idealizatzen ditugu; bigarrenean, errealitate gordina datorkigu, oinak lur gainean jarrarazten dizkiguna; eta hirugarren eta azken fasean, pentsamendua gure interesetara birmoldatuz, oinen zerbitzura. Joan Mari Irigoien

Izenak, berriz, nahi adina asmatu dituzte adituek joera hori eragiten duen gaixotasuna izendatzeko: **eskizofrenia**, diglosia, autismoa. Joxerra Garzia

Gure bizia da, gure **eskizofrenia**. Berria - Kultura

Obaba leku gisa aukeratzeak «antzinako munduko» hitzetara bideratu zuen, eta, esate baterako, Freudez geroztiko hitz asko galarazi zion horrek: depresioa, **eskizofrenia**, neurosis, histeria. Horren ordez, animalien bidezko esplikazio fantastikoetara jo zuen. Berria - Harian

Gizadi osoa **eskizofreniak** jota dagoelako ideia ere erabili izan dut gogoan. Koro Navarro

2 irud/hed

Barne-herstura eta **eskizofrenia** eragingo ez baditu, bateratua eta koherentea izan behar du irudikapen horrek. Juan Garzia

Gizadi osoa **eskizofreniak** jota dagoelako ideia ere erabili izan dut gogoan. Koro Navarro

Gogorra izan behar du, Patri, bizitza osoa eta nortasuna bera, **eskizofrenia** hutsean oinarriturik eraikitzea. Hasier Etxeberria

EAJren ustez, PPko gobernuaren «**eskizofrenia**» frogatu du diskoarekin gertatu denak. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Miquel Bernardo Kataluniako Ospitale Klinikoko **Eskizofrenia** Programako zuzendariak *Zer dakizu* ***eskizofreniaz***? liburua aurkeztu zuen atzo Bilbon. Berria - Euskal Herria

Gehienetan **eskizofrenia** kasuak ikusten ditugu, eta nahaste bipolarrak ere bai. Ez zioten bada esan medikuek **eskizofrenia** kutsu pitin bat bazuela? Zoriontasunean esistitzea **eskizofrenia** klase bat dela idoro badugu, lotsa eta nazka ematen badigu, [...], zoriontasuna aspaldi ikusitako film aspergarri, beti-bera eta jasangaitza bada guretzat, zer egingo dugu? Berria - Harian

Honela, bada, ez duela merezi **eskizofrenia** suerte horretan irautea. Javi Cillero

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zoriontsua ez dago giza **eskizofrenia** fundazionaletik libre. Iñaki Segurola

5 ***eskizofreniazko*** *izlag*

Zoriontsua ez dago giza eskizofrenia fundazionaletik libre (aitzitik, **eskizofreniazko** kasu beteginena da), eta joskurarik gabeko hauskura batean bizi da. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskizofrenia zuela (3); **eta eskizofrenia** (3)

---

eskizofrenialdi *iz* eskizofrenia joaldia.

Kaliforniako La Habra hiriko fiskalak amorruz hil zuela dio; defentsak, berriz, **eskizofrenialdi** baten ondorioz hil zuela. Berria - Gaiak

---

eskizofreniko 1 *izond* eskizofreniarena, eskizofreniari dagokiona.

Lobulu frontalen jarduera gehiegizkoek edo patologikoek eragiten zizkietela gaixo **eskizofreniko** haiei obsesio, haluzinazio eta ilusiozko aztoramenak. Xabier Olarra

Komisarioak ondo gogoan du Linoren berria eta ezkonberri **eskizofrenikoena** orrialde berean irakurri izana. Harkaitz Cano

Besteak ostera, emakumezkoak, bere pertsonalitatea Paulova dantzariarekin nahasten zuen tartekako brote **eskizofrenikoetan**. Harkaitz Cano

Ohartu zen bere ohiko estiloa mutazio mingarria jasaten ari zela, ia **eskizofrenikoa**. Patxi Iturritegi

Maniako, depresibo, neurasteniko, paranoiko, **eskizofreniko** eta egoista batekin ezin dut iraun: banoa. Itxaro Borda

2 (izen gisa)

Horietako batzuk larridura eta depresioak joak ziren, beste batzuk **eskizofreniko** kronikoak. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan)

Urteko berririk bitxienetakoa izan zen hura, inondik ere, hiriko katedral nagusian gotzainak esposatu zuen **eskizofreniko** bikote baten ezkontza iskanbilatsuarekin batera. Harkaitz Cano

---

eskizoide *izond* eskizofreniari dagokiona, eskizofreniaren ezaugarriak dituena.

Bien bitartean, apaizen kapritxo kontrajarrien gerizpean, bere nortasun eta eginbideak argitu ezin hartan, bizipen **eskizoide** ulergarri asko pairatu behar izan zuen gure Jainko gaixoak. Patziku Perurena

Arian-arian, **eskizoide** egin naute, ordea. Iñigo Aranbarri

---

esklaberia *iz* esklabotasuna.

Ez da beti pentsatu gizaki batzuen **esklaberia** eskubide naturalen aurkakoa dela: Aristotelerentzat batzuk libre eta besteak esklabo izatea da naturala (bera librea zen noski). Joxe Azurmendi

Bortxak "ezer onik" ez dakarrelako tesiak, esplika biezagu gaiztotzat al dauzkan, ala nola etorritakotzat dauzkan, egungo Estatuak eta erakunde estatal guztiak, Justiziaren erakundea horien artean, eta demokrazia, Giza Eskubideen Deklarazioa, edo **esklaberiaren** abolizioa, etc. Joxe Azurmendi

---

esklabismo *iz* esklabotasuna.

Ez dut globalizazioari buruz jarduteko asmorik hala ere; ezta mestizajeaz, arrazismoaz, bilakaera demografikoaz, mendebaldearen gainbeheraz, talka kulturalaz, lanpostu kaxkarretako **esklabismo** berriaz, herri txikien desagertze arriskuaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Txanponaren beste aldeari erreparatuz, eta determinismo horri kritikan beraz, badirudi askorentzat aurreko sistema ekonomikoei buruz - **esklabismoari** edo feudalismoari buruz, esaterako-, nolabaiteko ikuspuntu "erromantikoa" ere gailendu dela. Iñaki Heras

Sistema horiek elkar elikatu eta indartzen dira eta arrazakerian, sexismoan, misoginian, xenofobian, homofobian, kolonialismoan, inperialismoan eta **esklabismoan** oinarritzen dira. Berria - Harian

---

esklabista *izond* esklabotasunean oinarritua.

1821ean, Nilo Garaia konkistatu eta ekonomia **esklabista** ezarri zuen Sudanen, Egiptoko industriaren zerbitzura. Tratuzko ekonomiak hartu zuen esklaboen salerosketaren lekua; tokiko lan-indarra sorlekuan bertan lanean jartzea da ekonomia mota horren ezaugarria, bertako herriegitura usadiozkoen baitan, edota estatu **esklabisten** errege-lursailetan (Dahomeyn adibidez). Koro Navarro

Baliteke Haitiko herriari ez zaiola barkatu potentzia **esklabistei** gailentzea eta 1804-an burujabetza aldarrikatu zuen lehendabiziko herrialde beltza izatea. Berria - Mundua

---

esklabizatu, esklabiza(tu), esklabizatzen du ad esklabo bihurtu.

Hemen asko produzitu daiteke, baina ez gara **esklabizatzen** utziko. Berria - Ekonomia

Lurraren sabel zulatuetatik meatzari **esklabizatuek** lanaren izerdiaz erauzitako ikatzarena zirudien belztasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

---

esklabizatzaile *izond* esklabizatzen duena.

Xantaia erabiltzen ere saiatu ziren enplegu kaskar **esklabizatzaile** hura onar nezan, baina nik kasurik ez, eta, gaur egun ere, oraindik izango da hor nonbait espedienteren bat edo epaiketaren bat nire kontra, baina nik behin ere ez nion garrantzirik eman. Karlos Zabala

---

esklabo *(ETCn **5.460** agerraldi; orobat **esklabu** g.er.)* 1 *iz* askea ez den, jabearen mendekotasun osoan dagoen pertsona. ik **jopu**.

Jeroboamen etxeko gizasemeak oro suntsituko ditut, libre nahiz **esklabo**, Israel osoan. Elizen arteko biblia

Jainkoaren aurrean kontsideratuta, ez dago ar eta emerik, **esklabo** eta librerik, greko eta judurik; arima hutsak eta berdinak dira gizakiak oro, diferentziarik gabe. Joxe Azurmendi

Erregina edo **esklabo**, jatorri persiarreko emakume hura eder-ederra zen. Karlos Zabala

Jaungoikoak mundua gobernatzen duelarik, behere honetako gauza guziak bere oinetan dauzka, nagusiak **esklaboa** bezala. Piarres Xarriton

Esklaboak eta jauntxoak batera hil zenituen, bai eta handikiak ere beren tronuetan. Elizen arteko biblia

Nagusiak eta **esklaboak**. Elizen arteko biblia

Jaunen morala, **esklaboen** morala. Joxe Azurmendi

Esklaboak erosi nituen, gizaseme nahiz emakume, eta hauen seme-alabak ere neuretzat izan nituen. Elizen arteko biblia

Zuek, **esklabook**, izan errespetu osoz zeuen nagusien menpeko. Elizen arteko biblia

Erromako herri-administrazioaren historian, zaldizko klaseak -merkatarienak, alegia- aurrera egin zuen **esklaboen** azpimunduaren eta senadore-aristokraziaren bizkar. Iñaki Mendiguren

Langileak falta zirelarik, kolonietako ustiakuntza-sistemak, afrikar **esklaboen** salerosketara jo behar izan zuen gero eta gehiago; portugaldar, espainiar, holandar, ingeles eta frantses beltz-tratulariek eramaten zituzten **esklaboak**, garraio-baldintza izugarrizkoetan. Koro Navarro

Israeldarren artetik, ordea, ez zuen inor **esklabo** izatera behartu. Elizen arteko biblia

Izan gogoan zeuek ere **esklabo** izan zinetela Egipton eta Jaunak zeuen Jainkoak askatu zintuztela. Elizen arteko biblia

Bil itzazu sakabanatuak dauden guretarrak, askatu jentilen artean **esklabo** daudenak. Elizen arteko biblia

Madarikatuak zure seme-alabak **esklabo** eduki dituzten hiriak! Elizen arteko biblia

Atsegin ez bazaio, libre joaten utziko dio; ez du salduko diru truk, ezta **esklabo** egingo ere. Elizen arteko biblia

Inperio handiaren **esklabo** bizi ziren, ordea. Jose Antonio Mujika

Esklabo eramango gaituzten nazioen erdian, gure gainera botako du gure senideen heriotza, gure herriaren gatibualdia eta gure ondarea suntsitzearen erantzukizuna. Elizen arteko biblia

Gure seme-alabak **esklabo** saldu beharrean gertatzen gara, eta gure seme-alabetako batzuk dagoeneko **esklabo** bilakatu dira. Elizen arteko biblia

Servio Tulioren arauen arabera [...] erroldan izena ematen ez zuen hiritarra **esklabo** bihurtzen zen. Iñaki Iñurrieta

Har nazazu **esklabotzat** mutikoaren ordez, eta doala hau anaiekin. Elizen arteko biblia

Esklaboei buruzko legeak. Elizen arteko biblia

Gero aldapak datoz, eta tontorrak, eta haietan penatzea, haietan behartzea inork agindu gabe [...] eta izerdia bota beharra, eta erlojuari begira hastea, eta bizkarrean karga eramatea jaberik gabeko **esklabo** baten gisan. Iñaki Segurola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Esklabo beltzak Afrikatik Mundu Berriko plantazioetan lan egitera eramatea. Iñaki Mendiguren

Populazio amaigabeak behar zuen egon paraje haietan; gaur egun, ordea, basamortu huts lirateke, han zenbait soldadu eta zenbait **esklabo** erromatar ez balira. Iñaki Iñurrieta

Don Fidel Urdanburu zen, Iruñako nafar hura, bere **esklabo** indiarrak ezin okerrago tratatzen zituena. Joan Mari Irigoien

Bazuen Xexanek **esklabo** egiptoar bat, Jarha izenekoa. Elizen arteko biblia

Zuk ekarri diguzun **esklabo** hebertar hori nirekin gozatzeko asmoz etorri zait. Elizen arteko biblia

Geure **esklabo** israeldarrei alde egiten utzi ez diegu, ba! Jose Antonio Mujika

Garai hartan Elizak espero zuenaren arabera, Kristoren bigarren etorrerarako geratzen zen denbora hain zen laburra, ezen soldadu konbertituak eman baitzezakeen armapean, **esklabo** konbertituak katepean bezala. Iñaki Mendiguren

Akabo ziren eztabaidak, istilutsuak nahiz lasaiak: **Esklabo** Iheslarien Legea, Kokapen-Kuota, Jainkoaren Bideak eta beltzentzako elizaulkiak. Anton Garikano

Haien ondoan ez ginateke **esklabo** herabetiak baizik. Jon Muñoz

Nire txandaren zain, **esklabo** manakor baten gisara, jaun goren horren ontarte ezin bikainagoak noiz hartuko. Jon Muñoz

Esklabo latzikaratu batek kontatu zuen arrasto gorri bat ikusi zuela ilunpeak ildotzen Etnaren gailurrerantz. Juan Garzia

Norbaitek emakumezko **esklabo** batekin sexu-harremanak baditu, emakumea beste bati hitz emana zegoelarik eta jarein-sari bidez edo beste nolabait libre izatera iritsi gabe, kalte-ordaina eman beharko du. Elizen arteko biblia

Komunikabideen eta teleteknologien garaian non geratu dira Platonen haitzuloaren mitoa eta errealitatea? zein dira haitzuloko **esklaboak** eta zein askeak? Askoren artean

Berekin hartu zituen bere emazte Sarai, iloba Lot, Haranen lortutako ondasunak eta erositako **esklaboak**. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esklabo-espiritua zuten. **Esklabo**-mundu honetatik sortu ziren barne-proletalgoaren erlijio berriak, horien artean kristautasuna. Iñaki Mendiguren

Turkiera zen administrazio inperialaren hizkuntza ofiziala, baina otomandar boterearen une gorenean kristau-aroko hamaseigarren eta hamazazpigarren mendeetan padisharen **esklabo**-etxeko *lingua franca* serbo-kroaziera zen eta otomandar itsas armadaren lingua franca italiera. Iñaki Mendiguren

Stalinen **esklabo** esparruetako batetik ihes egiten saiatu zen 1944ko neguan.Septimaren **esklabo**-gelaxkara jo zuen, eta eskutik heldu zion. Koro Navarro

Israel ez da izatez esklabo, ez eta **esklabo**-seme ere. Elizen arteko biblia

K.a. azken bi mendeetan Ekialdeko Mediterraneotik Italiara ekarritako **esklabo**-saldoetatik "libertoen" klase bat sortu zen, ikaragarri ahaltsu bihurtu zena. Iñaki Mendiguren

Adimen argituaren ondorio diren bertute ongileek nahiago dutelako gizon zoriontsuak gobernatu, **esklabo**-artaldea baino. Juan Martin Elexpuru

Atsedena gozoa eta lurraldea ederra zela ikustean, bizkarra makurtu du, zamak eramateko; **esklabo**-lanetara jarri da. Elizen arteko biblia

Hustu egin zen bere handi-izateaz eta **esklabo**-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Elizen arteko biblia

Sei edo zazpi beltz zetozen, bidean gora oinez: **esklabo**-ehiztariaren ezkerretik bi mutil, eta emakume batzuk eskuinetik. Anton Garikano

1780-90: **Esklabo** merkataritzaren urterik oparoenak izan ziren. Berria - Gaiak

El Alamora iritsi aurretik, **esklabo** trafikoaren negozioan jardun zuen urte luzez Jim Bowiek. Berria - Kultura

Antzinako garaietan egiten ziren **esklabo** ehizak bezala! Josu Zabaleta

Kretako **esklabo**-azokara eraman zuten, salgai. Joxerra Garzia

Lizun eta homosexualentzat, **esklabo**-salerosle, gezurti eta zinausleentzat, eta irakaspen osasungarriaren kontra jartzen den edonorentzat. Elizen arteko biblia

Ogia eta arraina Jainkoaren botereak ziren, eta ez **esklabo**-ohi batenak, Anton Garikano

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abere handi eta txiki, zaldi eta gurdi, eta giza **esklabo**. Elizen arteko biblia

Haren ondorengo Mehmet II.a sultanak [...] beste bide bat asmatu zuen bere herri-administrazioa langilez hornitu zuenean, ez jada osmanliar aitoren seme musulmanen semeekin, kristau-**esklaboekin** baizik. Iñaki Mendiguren

5 (izenondo gisa)

Gizon **esklaboak** gizon libreak baino gutiziatsuagoak dira, lizunagoak, ankerragoak. Juan Martin Elexpuru

Abd, Abd-el-halim, Egiptoko printzea, Mehmet Aliren eta emakume **esklabo** baten semea. Lopez de Arana

Indar infernutiarrek aldi berean jaso zituzten emakume **esklabo** bat eta gizon libre bat. Ez didazue aditu zeuen senide **esklaboak** libre uzteko agindu dizuedanean. Juan Garzia

Dueloa gladiadore **esklabo** doilortuek herriari ematen zioten ikuskizun arrunta zelako. Juan Martin Elexpuru

6 irud/hed

Ez da lehenengo aldia, dakikezun bezala, jadanik zure **esklabo** ez izatea deitoratzen dudana; eta horren mustroa naizela diozun arren, ez dut sekula plazerrik gabe oroitzen izen eztiagoekin ohoratzen ninduzun garaia. Jon Muñoz

Umearen **esklabo** bihurtzen da ama. Arantxa Iturbe

Telefonoaren **esklaboak** dira. Fernando Rey

Zakila nire ahoaren **esklabo**. Jasone Osoro

Bekatuaren menpetik askaturik eta Jainkoaren **esklabo** eginik. Elizen arteko biblia

Badakigu gure izaera zaharra Kristorekin gurutziltzatua izan zela, bekatuzko gure izaera ezereztua geldi zedin, eta aurrerantzean bekatuaren **esklabo** izan ez gintezen. Elizen arteko biblia

Bidearen morroi gara, hitzaren **esklabo**. Lourdes Oñederra

Oroimenaren **esklaboa** baino ez da bere izatez asmoa. Juan Garzia

Esklabo zurien erregina. Lopez de Arana

Ordu estrak maite ditu **esklabo** berriak, auto handiak, eta bigarren etxea edukitzea: bizitzekoa berria izan dadila, eta oporretakoa leku egokian egon dadila. Pako Aristi

Esklabo berriak ez du nagusi batentzat derrigortuta lan egiten; **esklabo** berriak aberatsa izan gabe aberatsak bezala bizitzeko bere burua behartzen du lan egitera. Pako Aristi

Nola erabiliko du gizakiak berak irabazitako aisia, bere zama ia guztia **esklabo** mekaniko nekaezin bati eman diolako? Iñaki Mendiguren

Agian, hori ikusita, Tammany Hall-eko hire laguntxoei iradokiko diek liskarrak alde batera utzi eta, guri, soldatapeko **esklabooi**, garraiobide hobeak eman diezazkiguten. Lopez de Arana

Aurrerantzean, sabela bete eta giro epelean lo egitekotan, haren **esklabo** sexuala izan beharko nuela. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina esklaboak (3); **bekatuaren esklabo** (5); **bere esklabo** (8); **bere esklaboak** (3); **beren esklabo** (3); **berriro esklabo** (3); **da nire esklabo** (4); **dira esklaboak** (3); **edo esklabo** (4); **egun esklabo** (3); **emakume esklabo** (4); **ere esklabo** (9); **ere esklabo izan** (6); **erositako esklaboak** (3); **esklabo bat** (12); **esklabo batek** (9); **esklabo baten** (5); **esklabo beltzak** (4); **esklabo beltzen** (4); **esklabo berria** (3); **esklabo berriak** (6); **esklabo bezala** (4); **esklabo bihurtu** (8); **esklabo bihurtuko** (6); **esklabo bihurtzen** (9); **esklabo bizi** (3); **esklabo egin** (5); **esklabo egingo** (4); **esklabo egiten** (3); **esklabo espiritua** (3); **esklabo eta** (12); **esklabo ez** (7); **esklabo gaituzu** (4); **esklabo gisa** (20); **esklabo horiek** (4); **esklabo izan** (22); **esklabo izan zen** (3); **esklabo izan zinetela** (4); **esklabo izango** (9); **esklabo izatea** (3); **esklabo izateko** (4); **esklabo izatera** (3); **esklabo lanetan** (3); **esklabo lanetara** (8); **esklabo zoriontsuak** (4); **esklaboa bezala** (3); **esklaboa eta** (3); **esklaboa izan** (4); **esklaboak bezala** (5); **esklaboak dira** (4); **esklaboak ere** (3); **esklaboak eta** (9); **esklaboak izan** (3); **esklaboak ziren** (3); **esklaboen artean** (6); **esklabotzat saltzen** (3); **eta esklabo** (28); **eta esklabo gisa** (5); **eta esklaboa** (5); **eta esklaboak** (11); **eta esklaboen** (6); **eta ez esklabo** (3); **ez esklabo** (4); **faraoiaren esklabo** (3); **haien esklabo** (4); **haren esklabo** (8); **inoren esklabo** (3); **libre nahiz esklabo** (6); **nahiz esklabo** (6); **nire esklabo** (5); **padisharen esklabo** (3); **zeuek ere esklabo** (4); **zeure esklabo** (4); **zeure esklabo gaituzu** (3); **zituzten esklaboak** (4); **zuen esklabo** (4); **zuen esklaboa** (3); **zuen esklaboen** (3); **zure esklabo** (8)

---

esklaboaldi *iz* esklabo egondako aldia.

Eta **esklaboaldian** geure jabeak ez zaizkigu gupidatuko, baizik eta lotsabide bihurtuko digu Jainko Jaunak **esklaboaldia**. Elizen arteko biblia

Zangoak dar-dar nituen, baina hura erran nuen, jaun André, **esklaboaldi** luze baten beldur izaiteak, gau eta egun lanean, izerdiz izerdi, ene bertze beldur guztiak garaitu balitu bezala! Joan Mari Irigoien

---

esklabotasun *(ETCn **407** agerraldi) iz* esklaboaren egoera; esklaboaren nolakotasuna. ik **esklabotza; joputza**.

Gerra eta **esklabotasuna** zibilizazioaren minbizi bikiak izan ziren beti gizarte-mota hau lehenengoz sortu zenetik. Iñaki Mendiguren

Kolonietan, sistema ekonomikoa **esklabotasunaren** mende zegoen ia osorik. Koro Navarro

Esklabotasunak 1848 raino iraun du [Reuniion ugartean] eta ondorioak ez dira arras ahantziak oraino. Herria

Egin diren estimazioen arabera, 1880ko hamarraldian **esklabotasuna** debekatu zen arte, hamairu milioi esklabo eraman ziren Amerikara. Koro Navarro

Israelgo umeen **esklabotasuna** Jainkoaren aurrean agertu zen. Xabier Kintana

Platonek jada bere Gorgias elkarrizketan planteatu zuena: nola itzuri errealitatearen **esklabotasunari** jendetzaren tiranian erori gabe. Askoren artean

Munduan hazten ari den negoziorik mardulena, **esklabotasun** berria. Gotzon Garate

---

esklabotu, esklabo(tu), esklabotzen du *ad* esklabo bihurtu.

Beharrik ene inguruan gazteak baditut, zinez ohargarriak direnak eta kuraia haundikoak, haien etsenpluari esker ari gira Alemanen kontra, hauek nahi gituztelarik zikindu, galdu, **esklabotu**. Michel Oronoz

---

esklabotza *(ETCn **1.728** agerraldi; orobat **esklabutza** g.er.)* **1** *iz* esklaboaren egoera; esklaboaren nolakotasuna. ik **esklabotasun; joputza**.

Demagun bi nazio daudela; batean, delituen mailako zigorrik handiena betiko **esklabotza** da; bestean, gurpila. Juan Martin Elexpuru

Jazarpena, irainak, bikotekidearen jipoiak, heriotza, ablazioa edo **esklabotza**, mundu zabalean egunero pairatzen ditugun zapalkuntzaren atal batzuk baizik ez dira eta goraki salatzeko bildu gara. Berria - Harian

Esklabotza deuseztatu zenetik, estatu kolonialistak eskaini duen irtenbide bakarra herritarrak banantzea xede duen sistema indarrean jartzea izan da, ustelkerian oinarritutako sistema da. Berria - Mundua

Esklabotza eta hondamenditik askatua izan eta Jainkoaren seme-alaben aintzazko askatasunean parte izateko. Elizen arteko biblia

Zuk ez gaituzu bazter utzi geure **esklabotzan**. Elizen arteko biblia

Neu nauzu Jauna zeure Jainkoa, Egiptotik, **esklabotzatik**, atera zintuena. Elizen arteko biblia

Esklabotzaren uztarpean dauden guztiek har ditzatela beren nagusiak ohoragarritzat, Jainkoaren izenaz eta gure irakaspenaz inork gaizki hitz egin ez dezan. Elizen arteko biblia

Israeldarrek, bitartean, intziri eta deiadarka ziharduten **esklabotzapean**. Elizen arteko biblia

Agintean egon direnean anker jokatu duten horiek, etorkinak kriminalizatu, ezkutuan bizitzera derrigortu eta **esklabotzara** behartu dituzten horiek izan dira aginteari agur esateko horren modu zoritxarrekoa aukeratu dutenak. Berria - Euskal Herria

Egiptoarrek tratu txarra eman ziguten, zapaldu eta **esklabotza** gogorra ezarri. Elizen arteko biblia

Baina orain ez dute aski gu **esklabotza** garratzean edukitzearekin: hitzarmena egin dute beren idoloekin. Elizen arteko biblia

Bera da Egiptotik, **esklabotza**-lurraldetik, atera zaituztena. Elizen arteko biblia

Brasilek aitortu du bere lurraldean **«esklabotzarekin** pareka daitezkeen baldintzetan» bizi direla 25.000 herritar. Berria - Mundua

Hirugarren munduan egun **esklabotzatik** gertu bizi (--?) direnak. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

betiko esklabotza (3); **da esklabotza** (6); **esklabotza badagoela** (3); **esklabotza deuseztatu** (3); **esklabotza eta** (5); **esklabotza ezeztatu** (4); **esklabotza gogorra** (3); **esklabotza gogorra ezarri** (3); **esklabotzak bizirik dirauela** (3); **esklabotzaren alde** (3); **esklabotzaren aurkako** (7); **esklabotzaren aurkako borrokaren** (5); **esklabotzaren kontrako** (8); **esklabotzaren kontrako borrokaren** (3); **eta esklabotza** (7); **eta esklabotzaren** (5); **eta esklabotzatik** (4); **haurren esklabotza** (4); **haurren esklabotzaren** (3)

---

esklabozain *iz* esklaboak zaintzen dituen pertsona.

Callie Elder-enean, berriz: "Esklabo batek beste bat hiltzen bazuen, nagusiak agintzen zion **esklabozainari** hildakoa hiltzaileari lotzea, eta honek soinean eraman behar izaten zuen, bera hiltzen zen arte. Pablo Sastre

---

esklabu ik **esklabo**.

esklabutza ik **esklabotza**.

esklamazio *(orobat **esklamazione**) iz* emozio edo sentipen bat adierazten duen hotsa, hitza edo esaldia.

Etxera bitartean, momentuak eskatzen zuen **esklamazioaz** gain: "Hori da, hori!", Sarak ez zidan komentario berezirik egin, eta harritu nintzen. Joan Mari Irigoien

Norbaitek kopuru bat bota zuen, eta harridura-oihuak, miresmen-txistuak eta denetariko **esklamazioak** entzun ziren. Jon Alonso

Eta, senak-edo manaturik, guztiz nahi gabe, urrats bat gibela egin zuten neskame eta morroiek, osabaren **esklamazionea** aditu orduko. Joan Mari Irigoien

esklamazione ik **esklamazio**.

esklaustrazio *iz* fraide edo moja bati klaustroa uztea baimentzea edo agintzea.

Ura guztia Gobernuak derrigortu zuen **esklaustrazioarekin** bukatu zen. Martin Anso

esklerosi *(orobat **esklerosis** g.er.) iz* gorputzeko ehunen, eskuarki organu baten ehun interstizialaren, gogortze patologikoa.

Batak Eddie zuen izena, **esklerosi** anizkoitza zuen, biek oso maite zuten musika, elkarren aldameneko geletan zeuden, elkarrekin jesartzen ziren. Xabier Olarra

Erresuma Batuan egindako ikerketa baten arabera, marihuanak **esklerosi** anizkoitzaren sintomak murrizten ditu. Berria - Gaiak

Gaitz terminalak jota daudenek eta hiesa, artitrisa, minbizia, **esklerosi** multiplea eta epilepsia duten gaixoek dute kalamua tratamendu gisa baliatzeko baimena. Berria - Harian

Larry Trask hizkuntzalari eta euskaltzain ohorezkoa joan den larunbatean hil zen, Ingalaterran, 60 urte zituela, alboko **esklerosi** anitzaren ondorioz. Berria - Kultura

Esklerosis mesialak eragindako epilepsia fokal tenporal sintomatikoa dutenei asko lagundu ahalko diegu, adibidez. Berria - Gaiak

Beste kasu batzuetan, adibidez **esklerosi** kasuetan eta, pronostikoa ez da hain ona izaten. Berria - Gaiak

esklerosis ik **esklerosi**.

esklerotida ik **esklerotika**.

esklerotika *(orobat **esklerotida**) iz* begiaren kanpoko geruza osatzen duen mintz zuri gogorra.

Esklerotika apur bat zimurtua zegoen, eta gogortua, antza; ninia nabarmen zabaldua; irisaren urdina lehen baino ilunagoa. Karlos Zabala

Ordu erdiko eztul mingarriarekin hasten zuen eguna eta, eztularen eraginez, bekokiko zainak handitu eta **esklerotika** gorritzen zitzaion. Jose Morales

Begia globo bat da, ia esferikoa, bi zentimetro eta erdi inguruko diametroa duena, zati bat opakoa (**esklerotida**) eta beste bat gardena duen geruza batez estalia. Josu Zabaleta

esklerotiko **1** *izond* esklerosiak joa.

Odola berotu egin zaie pixka bat, indar handiagoz isurtzen da beren arteria **esklerotikoetatik**, eta zainak haziak dauzkate bekokian eta lokietan. Xabier Olarra

2 irud/hed

Galdu duzue edo, egokiago litzateke esatea, agian, zuen kulturaren egoera **esklerotikoak** ez duela abenturarako zirrikiturik uzten. Jon Alonso

Ina garai hartan euskara ikasten ari zuan, eta bahago esaten huenarekin baino areago, hire euskara simaur **esklerotikoarekin** zegoela txora-txora eginda. Jokin Muñoz

esklerotizatu *izond irud* esklerosiak joa.

Gizartea gero eta **esklerotizatuago** dagoen organismo bat bezalakoa da. Jon Alonso

eskluditu, eskludi(tu), eskluditzen du *ad* baztertu, kanpoan utzi.

Horrek ez du esan nahi, printzipioz, populazioko sektoreak **eskluditu** nahi direnik. Xabier Amuriza

Baina gero, debate hautesketarian, zuk **eskluditzen** duzula bera, aurpegiratuko dizu! Joxe Azurmendi

esklusa *iz*

Itxi eta urak igo arte ari ziren itxoiten gabarratxo batean zetozenak, behin urak bestaldeko mailara iristean zabaldu ondoren aurrerantz abiatzeko, **esklusako** ateko hagak erretiratu eta gero. Joxemari Iturralde

Ubidetik gorantz joan zen paseoan eta bat-batean **esklusa** bat ikusi zuen. Joxemari Iturralde

esklusiba **1** *iz* eskubide edo abantaila esklusiboa.

Zuen garaikoen **esklusiba** da borroka? Unai Iturriaga

Gaur egun, esan liteke Interneten inguruko munduak duela tekno-liluraren **esklusiba**, eta hortxe gaude, Sarean leiho bat zabaldu nahirik esperantzari. Joxerra Garzia

Ongi da; utz diezaiegun estatuei geure argudioak erabiltzen; utz diezaiegun identitate kontuen **esklusiba**. Joxerra Garzia

Baina, katarrek beren helburuak lortuko balituzte, aberastu egingo nintzateke, agian, Schoppedhauerren liburuen **esklusibarekin**. Jon Alonso

TF1 kateak zuen Frantzian munduko txapelketako partidak emateko **esklusiba**. Iñaki Heras

Coca-Colak konpromisoa hartu du bere bezeroei beste marketako edariak saltzea galarazten zien **esklusibazko** kontratuak kentzeko. Berria - Ekonomia

2 berriemaile bakar batek ematen duen informazioa.

Esklusiba bat argitaratuz lehiakideen lepoa zanpatzeak dakarren plazerraren berri duenak baizik ez dezake jakin zergatik. Aingeru Epaltza

Ez nengoen trankil, hala ere, hotsa zabaldu eta Isabel Sanjoseren ilegorri tindatua ez ote zitzaigun halako batean ezerezetik agertuko, **esklusiba** hondatzera. Aingeru Epaltza

Ez zuen elkarrizketarik eman, ez zion inoiz **esklusibarik** eskaini halako edo honelako aldizkariri. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 ***esklusiban*** *adlag* era esklusiboan.

Hezkuntzako eskumena EAEk «**esklusiban**» duela zioen Gernikako testuan, baina hitz hori kendu egin zuten azkenean. Berria - Euskal Herria

15 egun lirateke, lantegiari **esklusiban** auto modelo bat egokitzen dioten urtean eta hurrengoan. Berria - Ekonomia

Hitzarmen gisa, kontratu bat firmatuko genuen: iragarpen bakoitzeko halako bat ordainduko zidaten, eta nik, **esklusiban**, Radio Euskadi eta Eusko Irratiarentzat baino ez nuen lan egingo. Pello Zabala

Honen arabera, ezin zaio sexu bati besteaz **esklusiban** jabetzeko lege-eskubiderik eman. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ukaezina da, halaber, emakumeak behartu ditzakegula gurari horiek betetzera, ez **esklusiban** -kontraesanean eroriko nintzateke-, baina bai momentuan bertan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gure aldizkariarentzako **esklusiban** Felix Areitio Ermua pilotariak egina da, Habanan. Edorta Jimenez

---

esklusibista *izond* esklusibotasuna erabiltzen duena.

Kontuan izanda musulman eta kristauak ofizialki "sinesgabeak" zirela batzuk besteentzat, eta fanatikoki **esklusibistak** ziren bi erlijio judaiko horien aldekoak kronikoki gerran zeudela, miragarria gerta dakiguke borrokalari haiek elkarrenganako sentitu zuten begirune-maila. Iñaki Mendiguren

Estatuarekin ere holako zerbait gertatzen zaigu: bere unibertsalismo espansionista eta **esklusibistaren** ondorio leherkorrak ezagunak zaizkigu. Joseba Zulaika

---

esklusibitate *(ETCn **164** agerraldi) iz* esklusibotasuna.

Kargu berriak exijitzen duen **esklusibitatea**. Berria - Kultura

Euskal Autonomia Erkidegorako politika publikoen «**esklusibitatea**» eskatu du EAJk. Berria - Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Gizarte Segurantzako politika publikoen **esklusibitatea**. Berria - Euskal Herria

Esklusibitatea zuten 63 medikuk sektore pribatuan lan egiten zuten. Berria - Euskal Herria

EAEko Kontu Publikoen Auzitegiak gomendioa egin dio Osakidetzari: langileen zuzendaritzak egiten dituen kontrolak zorroztu ditzala, **esklusibitateagatik** kobratzeko baldintzak betetzen direla ziurtatzeko. Berria - Euskal Herria

Inola ere ez dugu eskatu **esklusibitaterik** EHren oinordekotzan. Berria - Euskal Herria

Artelanen ezaugarriak bakartzerakoan, teoria estetiko klasiko gehienek indibiduoaren **esklusibitatea** azpimarratzen zuten. Askoren artean

Esklusibitateari buruzko kristauen teoria zaharraren, bi nagusiri batera ezin zerbitzatu zaiela dioenaren ume ipuina. Pako Aristi

Kursaaleko **Esklusibitate** kontratu antzeko bat zuen Sakabirekin. Iñigo Aranbarri

---

esklusibo *(ETCn **2.513** agerraldi; orobat **exklusibo** ETCn **7** agerraldi) izond* bakarra, besteak eskluditzen dituena, adierazten denarena baino ez dena.

Gradurik gabeko soldaduak denentzako putak baizik ezin ditzake eskura, ohaide **esklusiboa** izatea jaunen plazer eta eskubidea da. Jon Alonso

Bera eta biok Dato kaleko arropa denda dotore -dotore eta **esklusiboegi**, nonbait- batera sartu ginen. Patxi Zubizarreta

Handiustea litzateke asegaiztasun hori intelektual jendearen patu **esklusiboa** dela pentsatzea eta ez gizaki guztiona. Xabier Mendiguren Elizegi

Utzikeria eta harrokeria administratiboa ez direla Espainiako hiriburuaren ondasun **esklusiboa**. Ramon Saizarbitoria

Andresek maitasun **esklusibo** eta muker bat zion Luisitori. Josu Zabaleta

Atzerriko inperiogile baten atzerritar hizkuntzari erabilera **esklusiboa** emanez. Iñaki Mendiguren

Metalezko balio-unitate horien gaia gobernuen monopolio bihurtzea, eta gobernuen txanpon **esklusiboa** irudi eta gaininskripzio ofizial bereizgarriz irartzea. Iñaki Mendiguren

Orain ez naiz ezertan ibiltzen, nire mundua **esklusiboa** da, neure baitara mugatzen da. Pako Aristi

Espainian, arraza eta arrazialismoa, ikusi dugun aro guztian, ez da ezer berria eta are gutxiago Ortega-ren **esklusiboa**. Joxe Azurmendi

Latina bihurtu zen sortzear zegoen Mendebaldeko kultura hibridoaren hizkuntza ofizial eta **esklusibo**. Askoren artean

Beren arte **esklusiboa** eta sekretua baita. Jon Alonso

Ondo daki hori jende **esklusiboak**, buruargia eta sentibera bada. Karlos Zabala

Jendearengana banan-banan eta modu **esklusiboan** hurbiltzeko adurra zuen. Joxean Agirre

Teknikariaren ofizioa, egitateen gainean zaildua eta trebatua, ofizio maskulinoa dela inondik ere, **esklusiboa** ez bada ere. Joxe Austin Arrieta

Diogun, bukatu aurretik, teoria oralistak mintzabide idatziaren jabetza **esklusibotzat** duen arren, urruntzea dela bat-bateko bertsolaritzaren ezaugarri nagusia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jane Birkin andrearen maitalea, Jane Birkin amaren bikotea, Jane Birkin kantariaren konpositore ia **esklusiboa**. Berria - Kultura

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen **esklusiboa** izango luke «garrantzi berezia duten gaien inguruan erreferendumaren bidezko herri kontsultak deitzeko». Berria - Euskal Herria

IV. atala: Eskumen **esklusiboak** eta partekatuak jasotzen dira. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esklusiboak eta (3); **esklusiboak izatea** (3); **eskuduntza esklusiboa** (5); **eskumen esklusiboa** (6); **eskumen esklusiboak** (16); **eskumen esklusiboak eta** (3); **eskumen esklusiboak izatea** (3); **politiken eskuduntza esklusiboa** (3)

---

esklusiboki *adkag* era esklusiboan.

Esklusiboki arabiar aldizkari eta egunkariak irakurtzen zituen, Kairotik ekarraraziak. Juan Garzia

Hik badakik zenbat subnormal dagoen bere abertzaletasuna ia **esklusiboki** Athleticen oinarritzen dabena? Unai Iturriaga

Oraindik ia **esklusiboki** emakumeen eremu den merkatu-plazan. Unai Iturriaga

De Architectura ez da (edo ez **esklusiboki** behintzat) profesionalek erabiltzeko obra tekniko espezializatua. Santiago Iruretagoiena

Nazionalista etniko aseezinengandik oso gainetik dagoen Estatu demokratak beretzat **esklusiboki** nahi du "nazio" hitza. Joseba Zulaika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ia esklusiboki (3)

---

esklusibotasun *(ETCn **243** agerraldi)* *iz* esklusiboa denaren nolakotasuna.

Gure lagunarte murritzean, ni baizik ez nintzen agertzen gisako **esklusibotasun** senaren jabe. Aingeru Epaltza

---

esklusio *iz* baztertzea, kanpoan uztea.

Ez da **esklusioa**, baizik eta irekitasuna agertu nahi den mezua, beti ere gure herrialdearen sarrera ongi nabarmenduta. Berria - Mundua

Esklusio klausula, Erresuma Batuak Ituna sinatu zuenean lortu zuenaren antzekoa, antzekoa, Ekonomia eta Diru Batasunean eta defentsa gaiei buruz nahi izanez gero kanpoan gelditzeko aukera, alegia. Iñaki Heras

---

eskoadra ik **eskuadra**.

---

eskoadrila ik **eskuadrilla**.

---

eskoadrilla ik **eskuadrilla**.

---

eskoadroi ik **eskuadroi**.

---

eskoba[1] *iz* erratza.

Esku batean **eskoba** zeraman. Joan Mari Irigoien

Pepe, berriz, **eskoba** pasatzen hasi zen. Pablo Sastre

Kaleko ateak kirrinkaz zabaltzen, leihoetako kristalak tin-tin hots arinak egiten, **eskobak** galtzadako lauzetan aztarka eta igurtzika. Matías Múgica

Anaia zigortu nahi duenean, honek **eskoba**-kirtena hartu eta aurre egiten dio, eta zin degizut ama geldi-geldi geratzen dela dagoen tokian. Itziar Otegi

Bat **eskoba**-kirtena bezain tentea zen. Anjel Lertxundi

Fôk ez du kalean **eskoba**-pasa ibili nahi, edo gauzak saltzen ibili. Pablo Sastre

Arbolaxka zutik, lanabesekin auto aldera joana Mandi, Joxemari eta Gaston **eskoba**-palarekin obrako kondarrak zemento zakuan sartzen ari ziren. Pablo Sastre

Etxe txikiko bebarruan zakua eta pala-**eskoba** utzi, irten eta, Txonaren aitari agur esanik. Ezkondu nahi baduzue, esaiozu **eskoba** zahar hori ezpainen gainetik kentzeko. Pablo Sastre

---

eskoba[2] *iz* karta jokoa, bakarka edo bi, hiru edo lau jokalariren artean jokatzen dena hiruna karta banatuz, eta mahaian dauden lau kartetako bat edo gehiagorekin 15 puntu lortzen datzana.

Nola behin, vis a vis batean, oheratu ondoren, neskak soinekotik naipe-sorta atera, eta **eskoban** jokatzen hasi ziren, funtzionarioa iritsi zen arte. Iban Zaldua

---

eskobara ik **eskuare**.

---

eskobatu, eskoba(tu), eskobatzen **1** du *ad* eskoba pasatu. ik **erratzatu**.

Hortik aurrera, **eskobatzea**, sukaldatzea, arropa garbitzea eta haurrak edoskitzea, horra bere bizitza zertara laburbilduko zen. Patxi Zubizarreta

Txanoa hartu eta lurra **eskoba** nezakeen, neure eskuari muin eman eta señorita esan neskek irribarre egin zezaten nitaz errukitu gabe. Koro Navarro

Hurrena, etxea **eskobatu**, eta atondoko zorua garbitu zuen. Patxi Zubizarreta

Itxaron behar izan zuen Inés andreak kalea **eskobatzeko** lana buka zezan eta erratzaren kirtenarekin semeari saihetsak eztenkatzera etor zedin. Juan Garzia

Zapatak entregatzeaz gain denda **eskobatzen** nuen eta erakusleihoko hautsa kentzen nuen. Pello Lizarralde

Berak **eskobatzen** zuen bere ganbara, ederki saiatuta zoko guzti-guztietan. Fernando Rey

Behin batean, Frantzisko dohatsua Asis hiriko auzo bateko elizara joan eta hura **eskobatzen** hasi zen. Askoren artean

Haren eskuetatik erratza hartu eta falta zena **eskobatu** zuen. kota-uztaia jaso, aleak **eskobatu**, eta garbitzeko zapiaz igurtzi zuen zorua. Jon Muñoz

2 irud/hed

Suzko erratz batek **eskobatu** zuen lurra, zakarrak erreaz. Koro Navarro

Haize leunak hedatu eta **eskobatzen** duen ke meharrezko gortina bezalako babesa. Jon Alonso

Mairuak, ordurako Portugaleko lurraldetik **eskobaturik**, gure kostaldea eta bertako herriak suntsitzera etortzen zirenean. Jon Alonso

On Camillok eserlekuaz **eskobatu** zituen sei haiek amorrazioz lehertzen geratu ziren, eta tabernan garraxika ari ziren eroen modura. Koldo Biguri

---

eskobatze *iz* eskoba pasatzea.

"Arratoiak" deitzen nien: **eskobatze** ezak sorrarazten dituen ile eta hauts bola gris geroz eta handiago horiek ziren arratoiak. Iban Zaldua

---

eskobazale *iz* eskoben zalea dena.

Pikuta, **eskobazalea**. Pablo Sastre

---

eskobila *iz* eskuila.

Minutu erdia ere ez, han aurkitutako **eskobila** eta hortz-orearen laguntzaz beilaren eta whiskyaren kiratsa ahotik itzaltzen. Aingeru Epaltza

---

eskoil *iz ipar* puska.

Baitezpadako nahasmena, dakizkidan ingeles eta gaztelania **eskoilekin** argitzen saiatzen naiz: Gipuzkoako adiskideek erraiten didate goizean Orreagatik bakarrik abiatua zen emazte frantses batek gibelera egin duela: keinuka beribilei ari zitzaien. Piarres Aintziart

---

eskola *(ETCn **145.439** agerraldi) iz* **1** lehen irakaskuntza edo gai berezi bat irakasten den ikastetxea. ik**ikastola**. *(ikus beheko konbinatorian* eskatu *aditzaren agerraldi maizkoenak).*

2 ***eskola-emaile*** *(orobat **eskolemaile** g.er.) iz/izond ipar* eskola ematen duena.

Neuville Saint Vaast herrian duela 58 urte serora eta **eskola emaile** izendatua izan baitzen. Herria

Katixima egile, **eskola emaile**, erizain, elizkizun arduradun, badute nun zer egin. Herria

50 urte Hazparnen iragan ditu, **eskola emaile**, gazte moldatzaile eta parropiako elizkizunetan parte hartuz. Herria

Ttipi **eskola-emaile**, Ttipi isil-gordezale, Ttipi sekretu-ebasle. Aingeru Epaltza

Eskola emaile, Afrikan misionest, Indoxinan soldadoen omonier, zerbitzari ernea. Herria

Garai hartan Luisenea zen Arnegiko alkate eta **eskola emaile** paregabea izana den Alexandre Alchourroun-en etxea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hek dire Bastidako aita Benedikanoen komentua eta Maule Agerreko fraide **eskola emaileen** komentua. Xipri Arbelbide

3 ***eskola etxe*** *(orobat **eskoletxe**) iz*

Charliek maiz kontatu izan dizkit **eskola-etxe** horretako izugarrikeriak. Mirentxu Larrañaga

Bestalde, eguberrikari, San Josepe eskolako burasoek oñoña xokolatezkoak salduko dituzte ostirale aratsaldean **eskoletxean** eta ere aratsean Eliza atean mezatik landa. Herria

Asmoa dugu **eskoletxea** zabaldu eta ibai gaineko zubia birreraikitzeko. Koldo Biguri

Eskola etxe zahar bateko lehenengo pisuan zegoen, biltegi baten gainean. Jokin Muñoz

Eskola etxe haundiaren eskuinean baginuen ziterna urez betetzen zena denbora euritsua zelarik. Herria

Eskola etxean baliatzen ginuen ura turrustan, nahi bezenbat, dutxuloa zabalduz, ainitz estimatu ginuena. Herria

4 ***eskola haur***

Eskola haurren beharrei egokitu behar da, arrazoi gehiagoz haurrak ahalmen urria eta hezkuntza behar bereziak dituelarik. Berria - Euskal Herria

Medikuak izanen dituzue, **eskola haurrentzat**, benetako etxeak. Xabier Montoia

5 ***eskola ordu*** *(orobat **eskolordu** g.er.)*

Ez da bakarrik ikasgai kontua: ikasgai bakoitzari honenbeste **eskola ordu** dagozkio eta eskola motak ere (teorikoak, praktikoak) plangintza orokorraren barnean definitzen dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Europako Batasunetik kanpoko etorkinek flandesera ikasteko gutxienez 120 **eskola ordu** jaso beharko dituzte. Berria - Mundua

Benetan luzea iruditu zitzaion **eskola ordua**. Aritz Gorrotxategi

Eskola ordua amaitzean, Martinek irteerako bidea hartu zuen. Aritz Gorrotxategi

Irakasgai gehiegi, **eskola ordu** gehiegi eta ordu gutxiegiko gaiak egotea ziren akatsik nabarmenenak. erraza da irakasgai bati hogei **eskola ordu** kentzea, baina horrek ez du gehiegi balioko aldi berean irakasleak horri dagokion gaien edukia ere gutxitzen ez badu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bukatu zen lehendabiziko **eskola ordua**. Anjel Lertxundi

Hirugarren **eskola ordua** igarota, bigarren solairura igo nintzen, Uilen ikasgela ikustera. Juan Kruz Igerabide

Bete beharreko **eskola-orduak** beteko banituen filosofiaz gain beste zerbait eman beharko nuela, eta hala ari nintzen, hasiera-hasieratik, euskara ematen BBBko lehen mailan. Joxerra Garzia

Eskola-ordu neurritsuetan egindako errieta horrek asko apaldu zuen nire begietara Sartalde Basaren aintza, eta Leo Dillonen nahastu-aurpegi puztuak har bat ernatu zidan kontzientzian. Irene Aldasoro

Orain arte, **eskola ordu** presentzialek eta azterketek pisu handia zuten. Berria - Harian

Hizkuntzak soilik **eskola ordu** jakin batzuetan ikasten dituztenean, ordea, emaitza hobea ematen dute adin jakin batetik gorako eskola umeek. Berria - Euskal Herria

Azken **eskola-ordua** saltatu eta zerbeza pare bat hartu dudala lagunekin. Patxi Iturritegi

Ronek eta Hermionek libre geratutako **eskola-ordu** hura azti-xakean partida bat jokatzeko aprobetxatu zuten. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ibaetako campuseko **eskola orduen** edukiak. Iñaki Mendiguren

Eskola orduan txikarra egiteak erruduntasunaren zaporea eta lege haustearen lilura dakarzkio oraindik, jadanik unibertsitatean, gurasoek ordaindutako jesuiten ikastetxe garestian ibili arren. Urtzi Urrutikoeetxea

Ekintza guztiak **eskola orduetan** egiten dira, eta jarduerok eskolaren nahien arabera antolatzen dituzte. Berria - Kirola

Ikastetxeetan, **eskola orduetan** jokatuko dira heldu den asteartetik aitzin saio guztiak, eta finala, berriz, apirilaren 1ean izanen da, Bilboko Kafe Antzokian, besta handi baten aitzakian. Berria - Kultura

Eskolorduetan haren ondoan esertzen saiatzen nintzen, eta berak ez zidan konfiantza-biderik ematen, eta niri zapuzgarri eta erronka zitzaidan hori. Juan Garzia

Ikasle hauek elkarren artean maizegi erdaraz dihardute, euskara **eskola orduetarako** eta hizkuntza eskabideetarako bakarrik utzirik. Pello Salaburu

Eskola orduetatik kanpo, badakizu... atsegin baduzu, jakina. Aritz Gorrotxategi

· Horrenbesterekin, setio eta eraso latzean oldartu zen Lyssenko sobietar genetika· **eskola ordura** arte bikain askoaren aurka. Juan Garzia

6 ***eskola ume*** *(ETCn **60** agerraldi; orobat **eskola-ume**, **eskolakume** g.er. eta **eskolaume** g.er.) iz* eskolara joaten den umea.

Alemanian berriro! A zer enbidia dizudan! **Eskola ume** nintzenetik ikusi gabe baldin badaukat ere, hunkitu egiten nau oraindik *Unter den Linden* idazteak. Ramon Etxezarreta

Eskola umeak solfeoko liburuak San Juan bezperako sutan erretzen: ilusio kiskaliak sol maiorrean. Joxerra Garzia

Eskola-umeak txipen bidez kontrolatzeko lehen saioak egin dituzte bi ikastetxetan. Berria - Gaiak

Lehendabiziko aulkira iritsi baino lehen gelditu behar izan zuen, Urgull gibeleko **eskola-umeei**, bultzako ote zuten beldurrez, bidea uzteko. Ramon Saizarbitoria

Bide-heziketako irakasle haren anaia Andonik ere ondotxo daki **eskola umeen** artean futbolak zer indarra duen. Joxerra Garzia

Eskola-umeen arteko sesio batek merezi ote du errugabe bat berriro Azkabanen sartzea? Iñaki Mendiguren

Gauza barregarriagorik ez dago hamaika urteko **eskola-umez** betetako gela batean haize-parrastada zaratatsu bat baino. Oskar Arana

Eskola-ume hankaluze bat zen Viky, kalpar hori motzaren erdian erretena zuena, eta arduragabe makurtu zuen burua, agur egiteko. Anton Garikano

Idazmahaian ezarri zituen ukondoak, pentsati, ikasgaia errepasatzen ari den **eskola-ume** zintzo bat irudi, gutunean finkatu zuen begirada, eskuzko lerro bakan haietan. Xabier Olarra

Eskola-ume gaixtoek gogaitu egiten ninduten, nire sugar biziarekin arinkeria handiz jokatzen zutelako. Eduardo Matauko

Landare eta arbola artean ibili ginen, eta **eskola-ume** ilara luzeen artean.Eta une hartan zera etorri zitzaidan gogora: alegia, behargin haiek nire egoeran suertatuz gero -ni **eskola-ume** talde handi baten erdian, eta haiek bakarrik, alegia- ea erreparatuko ote zioten gure tropel builosoari. Ramon Saizarbitoria

Jakintsuak aspaldi kezkatzen hasi ziren bezala, gaur edozein **eskolaume** datorkizu "egia al da klima aldatzen ari dela" galdezka. Pello Zabala

7 ***eskola liburu*** *(orobat **eskolaliburu** g.er.)* eskolan erabiltzen den liburua.

Zenbait egilek bertako ikasleei zuzenduriko zortzi **eskola liburu** argitaratu dituzte. Berria - Kultura

AEBetako egunkari batek 1996an argitara eman zuen ordura arte sekretupean izaniko SOAko **eskola liburu** bat. Berria - Mundua

Annak **eskola liburu** berria behar du, eta irakasleen gelara sartu da liburua kopiagailuan kopiatzeko. Berria - Kultura

Ikasle atzerritarrek euskara ikasteko duten materiala aztertu egingo dute eta, behar izanez gero, euren beharrizan eta premien neurrira moldatutako **eskola-liburu** berriak sortuko dituztela iragarri zuen Iztuetak. Berria - Harian

Lombardoren *Sententzien Liburua* zen hura, gero XIII. mendeko unibertsitatean teologiako **eskola-liburu** klasiko bihurtuko zena. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

aiherrako eskola (7); **ama eskola** (16); **ama eskola eta** (9); **antzerki eskola** (7); **arte eskola** (6); **azken eskola** (9); **bai eskola** (6); **baina eskola** (17); **baino eskola** (6); **bat eskola** (9); **bateko eskola** (7); **bere eskola** (70); **bere eskola herri** (7); **bertso eskola** (61); **bertso eskola bakoitzak** (6); **bertsu eskola** (14); **beste eskola** (20); **bi eskola** (22); **da eskola** (49); **da euskal eskola** (9); **dagoen eskola** (8); **dantza eskola** (11); **dela eskola** (10); **den eskola** (22); **denon eskola** (6); **dira eskola** (24); **diren eskola** (6); **ditu eskola** (9); **dituen eskola** (10); **dituzte eskola** (10); **du eskola** (25); **duen eskola** (19); **dut eskola** (7); **dute eskola** (24); **duten eskola** (11); **eaeko eskola** (9); **edo eskola** (21); **egin zuten eskola** (6); **ere eskola** (15); **eskola amaitu** (8); **eskola arteko** (9); **eskola bakoitzak** (12); **eskola barruan** (13); **eskola bat** (91); **eskola bat sortu** (6); **eskola batean** (73); **eskola batek** (9); **eskola bateko** (15); **eskola baten** (27); **eskola bati** (10); **eskola batzuetan** (6); **eskola batzuk** (8); **eskola berean** (9); **eskola berezi** (7); **eskola berri** (22); **eskola berri bat** (9); **eskola berria** (19); **eskola bidez** (6); **eskola bukatu** (12); **eskola bukatu eta** (6); **eskola da** (13); **eskola daude** (9); **eskola dela** (7); **eskola edo** (24); **eskola egun** (7); **eskola eguna** (8); **eskola emaile** (7); **eskola emaiten** (12); **eskola eman** (9); **eskola ematen** (12); **eskola ere** (9); **eskola eredua** (6); **eskola eta** (133); **eskola eta lehen** (10); **eskola euskalduna** (10); **eskola ez** (20); **eskola ez da** (6); **eskola garaia** (6); **eskola garaian** (10); **eskola garaiko** (10); **eskola giristinoen** (6); **eskola giristinoetan** (14); **eskola girixtino** (7); **eskola girixtinoak** (14); **eskola girixtinoan** (8); **eskola girixtinoen** (6); **eskola girixtinoetako** (15); **eskola girixtinoko** (17); **eskola girixtinoko burrasoek** (8); **eskola guzietako** (9); **eskola guzietan** (10); **eskola guztiak** (14); **eskola guztiek** (8); **eskola guztietan** (10); **eskola guztietara** (6); **eskola handirik** (7); **eskola hau** (7); **eskola herri** (7); **eskola honetan** (10); **eskola hori** (15); **eskola horiek** (11); **eskola horien** (6); **eskola horietan** (15); **eskola horrek** (9); **eskola horren** (6); **eskola horretan** (13); **eskola hortako** (10); **eskola hortan** (9); **eskola huntako** (6); **eskola hura** (10); **eskola hutsik** (8); **eskola ibiltaria** (11); **eskola izan** (10); **eskola jazarpena** (12); **eskola karta** (13); **eskola katolikoetan** (6); **eskola kirola** (8); **eskola kontseiluak** (11); **eskola kontseiluan** (6); **eskola kontseiluko** (7); **eskola kontuak** (6); **eskola lagun** (6); **eskola lagunak** (6); **eskola libroko** (6); **eskola liburu** (6); **eskola liburuak** (14); **eskola liburuetan** (7); **eskola mahaiak** (6); **eskola maisu** (8); **eskola nazionala** (15); **eskola nazionalaren** (14); **eskola nazionalaren iii** (7); **eskola okupatu** (7); **eskola okupatze** (7); **eskola ona** (7); **eskola ondoko** (6); **eskola ordu** (22); **eskola ordua** (6); **eskola orduak** (12); **eskola orduetan** (11); **eskola orduetatik** (10); **eskola orduetatik kanpo** (8); **eskola osoa** (8); **eskola partikularrak** (7); **eskola porrota** (7); **eskola pribatu** (12); **eskola pribatua** (11); **eskola publiko** (53); **eskola publiko berriaren** (14); **eskola publiko eta** (8); **eskola publikoa** (45); **eskola publikoak** (44); **eskola publikoak eta** (6); **eskola publikoan** (51); **eskola publikoaren** (42); **eskola publikoek** (6); **eskola publikoen** (7); **eskola publikoetako** (31); **eskola publikoetan** (49); **eskola publikoko** (27); **eskola sartze** (13); **eskola sartzea** (21); **eskola sartzeak** (6); **eskola sartzerako** (10); **eskola sistema** (7); **eskola sortu** (16); **eskola txikiko** (6); **eskola ume** (24); **eskola umeak** (10); **eskola umeen** (9); **eskola utzi** (22); **eskola utzi eta** (7); **eskola zaharreko** (9); **eskola zaharrekoa** (10); **eskola zorroa** (6); **eskolaz eskola** (7); **eta eskola** (142); **euskal eskola** (101); **euskal eskola nazionala** (11); **euskal eskola nazionalaren** (12); **euskal eskola publiko** (16); **euskal eskola publikoa** (10); **euskal eskola publikoak** (9); **euskal eskola publikoaren** (19); **euskal herriko eskola** (13); **euskara eskola** (6); **euskarazko eskola** (7); **frantziako eskola** (6); **gau eskola** (48); **gipuzkoako eskola** (6); **goi eskola** (6); **goi mailako eskola** (11); **gurasoek eskola** (6); **gure eskola** (18); **hainbat eskola** (12); **hango eskola** (8); **haur eskola** (62); **haur eskola berria** (8); **heldu den eskola** (6); **herri eskola** (13); **herriak bere eskola** (44); **herriko eskola** (39); **hezkuntzako eskola** (6); **hori eskola** (6); **josep eskola** (8); **josepe eskola** (9); **laborantzako eskola** (11); **lau eskola** (7); **lehen eskola** (13); **lehenengo eskola** (11); **mailako eskola** (17); **musika eskola** (40); **nekazaritza eskola** (8); **nire eskola** (10); **pilota eskola** (10); **san josep eskola** (8); **san josepe eskola** (9); **zegoen eskola** (8); **zen eskola** (35); **ziren eskola** (10); **zuen eskola** (32); **zuten eskola** (17)

ama eskolako (20); **antzerki eskolako** (9); **bai eskolak** (31); **bai eskolak euskalduntzeari** (28); **baina eskolak** (6); **bere eskolak** (15); **bere eskolako** (16); **bertso eskolak** (32); **bertso eskolako** (12); **bertsu eskolako** (17); **beslango eskolako** (12); **beslango eskolako bahiketa** (7); **buruzko eskolak** (7); **da eskolak** (10); **da eskolako** (6); **dira eskolak** (14); **diren eskolak** (7); **ditu eskolak** (7); **dituzte eskolak** (18); **du eskolak** (9); **dute eskolak** (6); **dute eskolako** (9); **eskolak antolatu** (6); **eskolak antolatzen** (8); **eskolak berak** (9); **eskolak egingo** (6); **eskolak egiten** (8); **eskolak eman** (28); **eskolak emango** (12); **eskolak ematea** (9); **eskolak emateko** (22); **eskolak ematen** (89); **eskolak ematen ditu** (10); **eskolak ematen zituen** (10); **eskolak ematera** (9); **eskolak ere** (32); **eskolak eta** (32); **eskolak euskaldundu** (36); **eskolak euskaldundu behar** (20); **eskolak euskalduntzeari** (29); **eskolak euskalduntzeko** (8); **eskolak euskaraz** (17); **eskolak ez** (25); **eskolak hartzen** (10); **eskolak izan** (6); **eskolak okupatu** (7); **eskolako arduradunek** (7); **eskolako bahiketa** (7); **eskolako besta** (13); **eskolako beste** (8); **eskolako burrasoek** (13); **eskolako eta** (18); **eskolako gaztetxoek** (6); **eskolako haur** (13); **eskolako haurrak** (26); **eskolako haurrek** (35); **eskolako haurren** (11); **eskolako ikasle** (15); **eskolako ikasleak** (10); **eskolako ikasleek** (10); **eskolako irakasle** (13); **eskolako irakaslea** (18); **eskolako irakaslea da** (9); **eskolako irakasleak** (14); **eskolako kide** (7); **eskolako kidea** (6); **eskolako kideak** (15); **eskolako kideek** (6); **eskolako lagun** (20); **eskolako laguna** (6); **eskolako lagunak** (12); **eskolako lanak** (25); **eskolako lanetan** (9); **eskolako lehen** (9); **eskolako maisu** (6); **eskolako patioan** (12); **eskolako zuzendari** (10); **eskolako zuzendaria** (19); **eskolako zuzendariak** (15); **eskolako zuzendariaren** (9); **eta eskolak** (48); **eta eskolako** (48); **euskara eskolak** (11); **euskarazko eskolak** (7); **frantses eskolak** (6); **frantzisko eskolak** (6); **gasteizko haur eskolak** (12); **gau eskolak** (29); **gau eskolako** (20); **goi eskolako** (9); **haur eskolak** (53); **haur eskolako** (9); **herri eskolak** (20); **herri eskolak egingo** (6); **herriak bere eskolak** (8); **herriko eskolako** (10); **ingeniaritza eskolako** (9); **ingeniaritza eskolako zuzendaria** (6); **irakasle eskolako** (10); **josep eskolako** (26); **josep eskolako haurrek** (6); **josepe eskolak** (7); **josepe eskolako** (20); **maria eskolako** (11); **medikuntza eskolako** (6); **mixel eskolako** (10); **musika eskolak** (10); **musika eskolako** (28); **nire eskolako** (6); **pilota eskolak** (6); **pilota eskolako** (8); **san frantzisko eskolak** (6); **san josep eskolako** (26); **san josepe eskolak** (7); **san josepe eskolako** (20); **san mixel eskolako** (10); **zen eskolak** (6); **zen eskolako** (9); **zituen eskolak** (8); **zuen eskolako** (11); **zuten eskolako** (6)

ama eskolan (23); **ama eskolatik** (11); **antzerki eskolan** (7); **azti eskolan** (6); **baina eskolan** (7); **bertso eskolan** (16); **bertso eskolara** (7); **bertso eskolaren** (7); **bertsu eskolan** (8); **beslango eskolan** (6); **bi eskolatan** (6); **da eskolan** (13); **da eskolara** (9); **da eskolaren** (6); **deabruaren eskolan** (7); **dira eskolara** (11); **dira eskolara joaten** (6); **dute eskolan** (7); **eskolan berean** (11); **eskolan bertan** (11); **eskolan bezala** (6); **eskolan diren** (6); **eskolan edo** (11); **eskolan egin** (9); **eskolan egiten** (11); **eskolan egon** (7); **eskolan ere** (16); **eskolan eta** (44); **eskolan ez** (17); **eskolan hasi** (15); **eskolan ibili** (8); **eskolan ikasi** (24); **eskolan ikasia** (7); **eskolan ikasten** (14); **eskolan izan** (9); **eskolan izena** (6); **eskolan sartu** (11); **eskolan sartzeko** (6); **eskolan zeuden** (7); **eskolara bidali** (6); **eskolara bidaltzea** (6); **eskolara bidaltzen** (12); **eskolara bidean** (12); **eskolara eraman** (11); **eskolara eramaten** (6); **eskolara ere** (7); **eskolara eta** (8); **eskolara ez** (14); **eskolara hasi** (7); **eskolara itzuli** (12); **eskolara itzultzeko** (6); **eskolara joan** (87); **eskolara joan behar** (10); **eskolara joan eta** (6); **eskolara joan gabe** (9); **eskolara joan nahi** (6); **eskolara joatea** (6); **eskolara joateko** (37); **eskolara joaten** (53); **eskolara joaten ez** (6); **eskolaren arteko** (8); **eskolaren besta** (7); **eskolaren bidez** (11); **eskolaren eta** (9); **eskolaren helburua** (7); **eskolarik ez** (29); **eskolarik gabe** (9); **eskolatik atera** (10); **eskolatik bota** (20); **eskolatik botako** (7); **eskolatik bueltan** (6); **eskolatik etxera** (11); **eskolatik etxerakoan** (6); **eskolatik irten** (14); **eskolatik irtetean** (6); **eskolatik itzultzen** (6); **eskolatik kanpo** (27); **eskolatik kanpo ere** (6); **eskolatik kanpoko** (6); **eskolatik landa** (11); **eskolaz ari** (6); **eskolaz eskola** (7); **eskolaz kanpo** (6); **eskolaz kanpoko** (14); **eta eskolan** (30); **eta eskolara** (21); **eta eskolara joan** (7); **eta eskolaren** (23); **eta eskolaren arteko** (7); **eta eskolatik** (18); **euskal eskolaren** (7); **euskara eskolan** (7); **ez eskolan** (8); **gau eskolan** (18); **gau eskolaren** (8); **gure eskolan** (8); **haur eskolan** (17); **haur eskolara** (9); **haur eskolaren** (10); **haurrak eskolan** (7); **haurrak eskolara** (15); **herriko eskolan** (18); **hizkuntza eskolan** (10); **irakasle eskolan** (14); **josep eskolan** (9); **musika eskolan** (17); **musika eskolaren** (7); **nafarroako antzerki eskolan** (7); **nautika eskolan** (6); **nintzen eskolara** (8); **san josep eskolan** (9); **zen eskolan** (8); **zen eskolara** (18); **ziren eskolara** (7), eta eskolarako (6); **zuen eskolan** (11)

ama esketan (7); **bertso eskolek** (18); **bertso eskolen** (31); **bertso eskoletako** (9); **bertso eskoletan** (29); **bertsu eskolen** (12); **bertsu eskoletako** (13); **bertsu eskoletan** (12); **da eskoletan** (7); **dira eskoletan** (8); **eskolek ere** (6); **eskolen artean** (7); **eskolen arteko** (11); **eskolen besta** (6); **eskolen sarea** (6); **eskoletako eta** (6); **eskoletako haur** (10); **eskoletako haurrak** (25); **eskoletako haurrek** (23); **eskoletako haurrekin** (10); **eskoletako haurren** (10); **eskoletako haurrentzat** (12); **eskoletako hezitzaileen** (6); **eskoletako ikasleak** (6); **eskoletako langile** (8); **eskoletako langileek** (13); **eskoletako langileen** (11); **eskoletan edo** (6); **eskoletan egiten** (8); **eskoletan ere** (21); **eskoletan eta** (36); **eskoletan euskara** (8); **eskoletan ez** (8); **eskoletan parte** (6); **eskoletara joan** (14); **eskoletara joaten** (9); **eta eskolen** (6); **eta eskoletako** (11); **eta eskoletan** (19); **euskara eskoletan** (7); **gasteizko haur eskolen** (7); **gasteizko haur eskoletako** (12); **gau eskolek** (17); **gau eskoletan** (18); **gure eskoletako** (6); **gure eskoletan** (8); **haur eskolek** (6); **haur eskolen** (49); **haur eskoletako** (61); **haur eskoletako hezitzaileen** (6); **haur eskoletako langileek** (12); **haur eskoletako langileen** (11); **haur eskoletan** (18); **herri eskoletan** (7); **herriko eskoletako** (8); **herriko eskoletan** (8); **herriko musika eskolen** (8); **hiru esketako** (7); **hiru esketan** (6); **musika eskolek** (6); **musika eskolen** (14); **musika eskoletako** (6); **nekazaritza esketan** (6); **udal haur eskolen** (13); **udal haur esketako** (22)

---

eskoladun *izond* eskola duena.

Beltz jantziek ere: **eskoladun**, mediku, irakasle, kazetari eta negozio-gizonek senperrenak ikusi zituzten. Anton Garikano

Orain, adiskideok, adiskide, **eskoladun** eta soldadu zareten aldetik, onar iezadazue eskaera xume bat. Juan Garzia

HORAZIO, **eskoladun** txiroa, Hamleten lagun eta isilentzulea. Juan Garzia

---

eskolagabe *izond/iz* eskolarik ez duena.

Hain ondo eta egoki hitz egin zuen hiru espiritu adimendun hauetaz, ezen entzuten zeuden pertsona ikasi asko erabat harriturik geratu baitziren gizon **eskolagabe** haren sermoiarekin. Askoren artean

-Jainkoak daki zer ez ote duten asmatu inorant **eskolagabe** horiek honezkero...! Joan Mari Irigoien

Inperioaren botere kontzeptua ezin zuen ulertu herri xehe **eskolagabeak**. Patziku Perurena

Gizon xume eta **eskolagabea**, Jainkoak eta gizon-emakumeek maitatua. Askoren artean

Nire aitaita artzaina zen, nekazari **eskolagabea**. Pello Zabala

Ezin du ulertu zein printze ahaltsuk erabaki duen lurjabe ziztrin eta **eskolagabe** haien artean bizitzen jartzea -Alde hemendik! Gizon sinple eta **eskolagabe** bat besterik ez haiz. Jose Morales

Ezjakinak gara eta **eskolagabeak**, nola ausartuko gara predikatzera? Askoren artean

Iruditzen zitzaidanez, edozein rabbi arrunt eta ezjakinek, haiek aztertzean, ez zuen hor inolako zailtasunik aurkituko, **eskolagabeak** eta izatearen naturari buruzko ikasketarik ez duenak ez baitio ezinezkoari ere sinesgaitz irizten. Xabier Kintana

Gosetearekin gaizki haziak diren 90 miliun haurrak, eta 640 miliun behar bezalako egoitza gabeak, eta 500 miliun artamen baitezpadakorik gabeak, eta hiruzpalau ehun miliun **eskolagabe** eta ezin erran nun geldi errepika hau. Herria

Erronka handia dute, **eskolagabe** kopuru handiko nekazaritza eremuetara iritsi nahi baitute. Berria - Gaiak

---

eskolagarri *adlag* eskolatzeko.

Hitz horien ondoan, haurren **eskolagarri**, neskatiko baten marrazkia ageri da, erratzez izen banaren jabe diren zakar batzuk garbitzen ari, eta zakar horiek dira: [...]. Iñaki Segurola

---

eskolaka *adlag* eskolen arabera.

Ordea, emazte idazleen "koadrilak" artifizialak dira, (gizon) idazleak **"eskolaka"** bildu izan baitira beti. Ana Urkiza

---

eskolaketa *iz* eskolatzea.

Baina -dio **eskolaketa** programa krausista ez askietsiz: Ortega-ren erregenerazionismoaren espezifikoa hau da- herri eta auzoetan eskolak zabalduz ere ezingo da Espainia berria eraiki. Joxe Azurmendi

---

eskolakide *izond* eskola berekoa, eskola laguna.

Gudu hartan bi mila **eskolakide** baino gehiago zeudela sartuak, eta nik ezin nituen kasu guztiak banan-banan ezagutu. Karlos Linazasoro

Seguru nengoen ikusteko moduko barrabaskeria egin ziola inoiz Henri Dunantek **eskolakideren** bati edo izeko biribilen bati. Unai Elorriaga

Demokrata ala errepublikanoa zen galdetu zioten **eskolakideek** Freehold-eko ume bati. Berria - Mundua

Egun batean, **eskolakide** batek berak nahi ez zuen liburu bat eman zidan, zatarra, potolo-potoloa. Ana Urkiza

Irakasle batzuk gurekin ziren, baita dizainierrak deitzen zituztenak ere, hau da, talde bakoitzean beren **eskolakideak** begiratzeko eta, azken batez, barrandatzeko hautatzen zirenak. Aingeru Epaltza

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Frankfurt-eko **eskolakide** batzuen ekarpenak -hala nola Marcuse, Adorno, Horkheimer, [...]. Askoren artean

Gurekin zegoen, orobat, **eskolakide** izan genuen Les James Txiki; Bob James zuen aita, herrixkako arratoi-harrapatzailea eta garatxo-galarazlea. Mirentxu Larrañaga

Ikastea bihurtu zen zeregin nagusia, eta **eskolakideena** gure harreman ohizkoena. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta zer da gertatzen? ume erdaldunek euskara ikasi baino lehenago dutela bere **eskolakide** euskaldunek ikasten erdara, helburua gainetik beheiti irauliz. Pello Salaburu

Eskolakide kristauak jende gisatsua ziren. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi mila eskolakide** (3); **eskolakide baino gehiago** (3)

---

eskolakume ik **eskola 6**.

---

eskolaldi *iz* eskolan pasatzen den aldia.

Horrelakoxeak dira niri Legazpiko **eskolalditik** geratu zaizkidanak. Joxerra Garzia

Ez zen **eskolaldi** luzea izan, zortzi-bederatzi urte nituela Legazpi utzi eta Iruna joan baikinen bizitzera, aita RENFEko langile izaki. Joxerra Garzia

Beharko osatu, bestela **eskolaldi** osoa barrez egingo zuten-eta nire ikasleek. Berria - Kultura

Azterketarako, definizioa buruz ikasiko dute batzuek, edo txuletaren bidez aprobatuko besteek, baina elipsia zertarako erabil daitekeen arrastorik gabe amaituko dute **eskolaldia**. Andoni Egaña

Adituen arabera, **eskolaldia** urtebete luzatuta, emakumeek %10 aukera gehiago izango lituzkete etorkizunean, «hobeto ikasiko luketelako irakurtzen eta idazten». Berria - Gaiak

Eskolaldi hastapenean ikasten duela haurrak bere buruaren ezagutzen, erakaslearen laguntzarekin. Herria

Beharrezkoa da ikasle batek etorkizunerako oinarrizkoak izango dituen edukiak eta gaitasunak lortzea bere derrigorrezko **eskolaldian**. Berria - Euskal Herria

Derrigorrezko **Eskolaldirako** Euskal Curriculuma oinarrizko txostenari 13 ekarpen egin dizkio. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **derrigorrezko eskolaldirako** (8); **derrigorrezko eskolaldirako euskal** (7); **eskolaldirako euskal curriculuma** (5)

---

eskolaliburu ik **eskola 7**.

---

eskolania *iz* monasterio batean kanturako prestatzen diren umeen multzoa.

Bello Portu 1920ko urrian jaio zen, eta batxilergoa musika ikasketekin uztartu ondoren, Felipe Gorriti **Eskolania** sortu zuen, 23 urte besterik ez zuela. Berria - Kultura

Hainbat egun atzerriko irakasleekin obra batzuk prestatzen aritu ondoren, Gasteizko Principal antzokian eskainiko dute kontzertua Santa Maria Zintzarri, Udaberria, Kanta Kantari, Olabide, Samaniego eta Luis Dorao Unamuno **eskolaniek**, 13:00etan. Berria - Kultura

Eliza bete jende, agintari, familiarteko, musika munduaren jarraitzaile eta abarretatik bereiz zitezkeen berak sortu eta urte luzez zuzendu zuen Felipe Gorriti **Eskolaniako** kantore ohiak tenpluan barreiatuak, oroimenean atzera begiratzen. Berria - Kultura

---

eskolaño *iz adkor* eskola xumea.

Gauza ederra da holako elkartasuna agertzen baita **eskolaño** horren alde, beso-laguntza eta diru-laguntza josiz, Bernadette zuzendariak azpimarratzen duen bezala. Herria

---

eskolapio *(orobat **eskulapio** g.er.) iz* José de Calasanzek gazteak eskolatzeko sortu zuen erlijio ordenako kidea.

BUPeko 2. ikasturtean, Lengua eta Literaturako irakaslea Felipe Agirre izeneko bat genuen, **eskolapio** tolosarra bera, erdalduna, borondate onekoa baina zokormazoa baino kamutsagoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Bilboko **Eskolapioen** kartzelan leihora agertu zelako hil zuen kartzelero batek Juan Antonio Bilbao 1939ko apirilean. Jokin Urain

Hamalau bat urteko haur multzo bat zen, ordura arte beste ikastetxe batzuetan ikasi eta aurrerantzean **Eskolapioetan** ikasteko asmotan sarrerako azterketa egitera joanak. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskolapioetan hasi nintzenez geroztik, hamar urte baino gehiagoz ia egunero hartu beharko nuen trena. Xabier Mendiguren Elizegi

Beasaingo Lasalletik joan ginenon artean baziren ikasle onak eta baziren erdipurdikoak, baina denok matrikulatu ginen irailean eta denok hasi ginen **Eskolapioetan** batxilergoko lehenengo mailan. Xabier Mendiguren Elizegi

Tolosako **eskolapioetan** Marcelino Marchite izan nuen frantsesezko irakasle, Erribera aldeko **eskolapio** bat, musikazalea eta kultura frantsesaren maitalea. Xabier Mendiguren Elizegi

Tolosako **Eskolapioetan** nolabaiteko tradizioa zegoen, azken urtean zebiltzan ikasleek aldizkari bat egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazuten lider moduko bat, Pepelu Retolaza, **eskolapioetako** apaizgai bilbotar bat, oso tipo bitala, nik gutxi ezagutu nuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, bazkaldu ere **Eskolapioetako** jantokian bertan egiten genuen, erdi-pentsionista. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskolapio bat (3); **eskolapioetan hasi** (3); **tolosako eskolapioen** (3); **tolosako eskolapioetan** (7)

---

eskolapiper *iz* eskola huts egitea.

Goizuetan "kixkalu" esaten genien, eta mutikotan bost harrapatuak gara Lantxeneko zubipean, **eskolapiper** eginez. Patziku Perurena

---

eskolar *izond* eskolarena, eskolari dagokiona.

Egutegi **eskolarra** prestatzen zihardutela. Pello Zabala

Graduado **eskolarra** eskatzen hasi beharko da behingoz, ezta? Xabier Mendiguren Elizegi

Bertako zenbait justizia epaitegik garrantzi handiko garraio **eskolarreko** sistema publikoa jarri zuten martxan. Iñaki Heras

Berrehun urte honetan Euskal Herriko historia izan da, ez bakarrik eusko lurraren Botere inbaditzaile militar, instituzional administratibo, **eskolarraren** historia bat, eta euskal erakunde politiko eta sozial tradizionalen desegilearena, baina baita arimen eta etxeen eta harreman pertsonalen eta identitateen inbaditzaile eta nahastailearena ere. Joxe Azurmendi

---

eskolaratu, eskolara(tu), eskolaratzen **1** da/du *ad* eskola joan; eskolara eraman. ik **eskolatu**.

Ni sei urtetan, jadanik ezkor aire batekin **eskolaratu** nintzen: tatxa bat neukan mihi puntan, ez nuelako ikasgelan erabiltzen zen hizkuntza ezagutzen. Itxaro Borda

Poztu egin ziren gainerako ikaskideak Urte Berri-eguna igaro eta handik gutxira **eskolaratu** zirenean, Gryffindorreko dorrea jendez eta zarataz bete baitzen berriro ere. Iñaki Mendiguren

Egun batean, ordea, hilekoaren eraginagatik-edo, tripako min handiarekin **eskolaratu** zen Arantxa. Joan Mari Irigoien

Egitasmoak elikagaiak eskuratzeko laguntza ematen dio seme-alabak dituen emakume orori, haurrak **eskolaratu** eta txertoak jartzearen truke. Berria - Mundua

Aurten 24.226 haur **eskolaratuko** dituzte ama-eskolan eta lehen mailan Zuberoa, Nafarroa Beherean eta Lapurdin. Berria - Harian

Iaz zortzi **eskolaratu** zituzten Seaskan, aldiz, aurten 11. Berria - Euskal Herria

---

eskolaratze *iz* eskola joatea; eskolara eramatea. ik **eskolatze**.

Zinbaweko **eskolaratze** tasa bera. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzak 0-3 urte bitarteko haurren **eskolaratzea** arautu du dagoeneko, eta Nafarroan ere bide berbera jarraitu nahi dute. Berria - Euskal Herria

Eskola inklusiboaren oinarriak sendotu nahi dituzte ikastolek, eta ikasle atzerritarren **eskolaratzea** marko horretan kokatu. Berria - Euskal Herria

Etorkinen **eskolaratzeari** buruzko liburua kaleratu du Sortzen-ek. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzak 47 irakasle laguntzaile jarri zituen iazko ikasturtean ikastetxeei etorkinen seme-alaben **eskolaratzean** laguntzeko, bai lehen hezkuntzan, bai bigarren hezkuntzan. Berria - Euskal Herria

---

eskolarte **1** *izlag* eskolen artekoa.

Gipuzkoako herri horretako Goenako zelaietan dago zirkuitua eta federatu eta **eskolarte** mailakoa izango da krosa. Berria - Kirola

2 *eskolarteko* *izlag*

Eskolarteko Abesbatzen Jaialdietan koruek nahitaez abestu behar zituzten kantu guztien bilduma da *Ala baita*. Berria - Kultura

Bertso eskolen eskaerari erantzunez antolatu zen lehendabiziko aldiz **Eskolarteko** Bertsolari Txapelketa. Berria - Kultura

Zazpi bertsolari ariko dira Euskal Herriko **Eskolarteko** Txapelketako finalean. Berria - Kultura

Geroago, **Eskolarteko** Txapelketatik ateratako bertsolari gazteak hasi ziren lantegi horretan. Berria - Kultura

Nik ez dakit **Eskolarteko** Txapelketari ze aldaketa, egokitzapen eta abar egingo zaizkion. Berria - Kultura

Euskal Herriko **eskolarteko** finala ekainaren 14an jokatuko dute Mungiako plazan. Berria - Kultura

Muniategik Bizkaiko **Eskolartekoa** irabazi zuen orduan, 2001eko Txapelketa Nagusian parte hartu zuen, eta 2002ko Bizkaiko Txapelketan finalera iristea lortu zuen. Berria - Kultura

Lehen, Gipuzkoako **Eskolartekoa** bukatu ondoren egun pasa bat eskaintzen zitzaien parte-hartzaileei; bertsolari ezagun bati bisita, jokoak eta abar egiten ziren egun horretan. Berria - Kultura

Gipuzkoako **Eskolartekoa** du kuttun. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arabako eskolarteko (3); **eskolarteko bertsolari** (17); **eskolarteko bertsolari txapelketa** (6); **eskolarteko bertsolari txapelketako** (4); **eskolarteko txapelketa** (7); **eskolarteko txapelketako** (5); **eskolarteko txapelketako finala** (4); **eskolarteko txapelketaren** (4); **eskolarteko txapelketetan** (3); **euskal herriko eskolarteko** (15); **herriko eskolarteko bertsolari** (7)

---

eskolastika *(orobat **Eskolastika**) iz* Erdi Aroko higikunde filosofiko eta teologikoa, Europako mendebaldeko unibertsitateetan irakatsi zena eta Aristotelesen eta Elizako gurasoen idatzietan oinarritzen zena.

Jaun Marcelen erranetan, **eskolastika** omen da zientzien zientzia, munduan dagoen zientzia dibino bakarra. Joan Mari Irigoien

Mundu honek matematika gehiago behar du, eta **eskolastika** gutiago, aitzina eginen badu. Joan Mari Irigoien

Platonismoa Platonengan linburtzen den greziar mintzaira da, anitz mendetako bere metaforak garatuz; **eskolastika** Erdi Aroko latin hilaren filosofia da, hizkuntza arruntekiko borrokan. Joxe Azurmendi

Eskolastikak, teoria hutsak, abstrazioak, munduaz beste egin gaitu, modu eta leku guzietan. Patziku Perurena

Garaiko **Eskolastikak** amesten zuen sintesia birplanteatzekotan, hobeto aztertu beharko ziren aldez aurretik, bai errebelazioaren bidez lortutako jakinduriaren ezinbesteko beharra, baina baita arrazoi autonomoak lor zezakeen argitze filosofikoaren eskubide eta mugak ere. Askoren artean

Eskolastikaren nominalismoari muzin eginez, materialismo naturalistaren zein eraikuntza kognitiboaren alde agertu zen hastapenetik. Askoren artean

Aristotelesen filosofia oinarri harturik, **Eskolastikaren** kristau pentsamendura egokitu zuen hura. Berria - Kultura

Erasmo **"eskolastikaren** xehetasun lehor eta antzuen" bidetik apartatu zen; Axularrek ez du urrats bakar bat ere emango **eskolastikaren** ortodoxiatik kanpo. Anjel Lertxundi

Eskolastikan hezitako aztertzailearen aiurria uzten du agerian Gojenolaren saioak. Iñaki Iñurrieta

Kal-m **eskolastika** musulmana dela esan liteke, eta mutakallim-n-ak eskola horretako filosofoak. Xabier Kintana

Eskolastika Behereko eskola eta joeren arteko borrokan erlijio-sentimendua eta erlijio-esperientzia sentsibilitate- eta bizipen-ahalmena hainbat gehiago galtzen ari ziren, zenbat eta haiek gero eta gehiago pasatu, **Eskolastika** berantiarreko Filosofian eta Teologian, determinatze eta zarpailtze kontzeptual eta gnoseologikoaren (teoriko-ezagutzazko) objektu izatera. Joan Mari Lekuona

---

eskolastiko **1** *izond* eskolastikarena, eskolastikari dagokiona; eskolastikaren aldekoa.

Zeren hitzak zehatza behar bailuke eta numeroaren zerbitzuan: ordea, hitza hitzaren zerbitzuan jartzen dugunean, nola jartzen baitute poetek, beren imajinazinoarekin, eta filosofo **eskolastikoek**, beren arrazoinarekin, kito! Joan Mari Irigoien

Egileak aipatzen duen "Lehen Kausa" izendapen hau, filosofo arabiar eta **eskolastikoek** oso erabilia, Aristotelesen sistemarekin erabat loturik dago. Xabier Kintana

Ondotik, Alcalako unibertsitate sortu berrian sartu zen gai liberalak, filosofia naturala eta morala, bai eta teologia **eskolastikoa** ikastekotan. Piarres Xarriton

Ez gara ohartzen gure diskurtso **eskolastiko** lojikaz apaindu eta itxuraz nobletu honek baino gizenki zuri gutxiago eta gihar gorri gehiago erakusten duela letratu gabeko edozein hiztun inozentek. Patziku Perurena

Idazketa lehor, **eskolastiko** soil honekin. Ibon Uribarri

Nahiago diat basoko txakur bat, izenik gabekoa, txakur **eskolastiko** bat baino...! Joan Mari Irigoien

Eckhartiar liburutxoa zenbait pasartetan eta batez ere sarrerako pasarteetan oso espekulatiboa da eta guztiz zaila ulertzen, zeren pentsamendu mistiko-**eskolastiko** zeharo garaietatik barrena baitabil. Joan Mari Lekuona

2 (izen gisa) eskolastikaren jarraitzailea den pertsona.

Primitibismoan eta eboluzionismoan ez bezala, lege naturalaren aldekoak aro guztietan aurki ditzakegu, Erdi Aroan ere bai: **eskolastikoen** eta juristen artean pil-pilean zegoen auzi hau. Askoren artean

Pierre Gassendiri berari aditu nizkioan, halaber, neure bizitzan peripatetikoen eta **eskolastikoen** kontra aditu nituen lehen hitzak. Joan Mari Irigoien

Doktrina positiboa eta **eskolastikoena** goratu. Patxi Altuna

---

eskolatu, eskola(tu), eskolatzen **1** du *ad* eskola hartu.

Herria estudiatu behar da -Costa-k egin duen bezala, esaten du-, eta bere eskolan **eskolatu**, landu. Joxe Azurmendi

Pasai-Antxon **eskolatu** nintzen mojen ikastetxe nazkagarri batean. Ana Urkiza

Hura, Frantziskoren izena entzun zueneko, santuaren irakatsiek **eskolatua** balego bezala, bat-batean isildu eta ikaslearen eskuetara joan zen, babes segurura bezala. Askoren artean

Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ongi **eskolaturiko** ikaslea irakaslea adina izango da. zer egin behar ote nuen nik, den-dena gazteleraz ikasitako honek, txiki-txikitandik euskaraz **eskolatutako** umeen aurrean? Elizen arteko biblia

Seme-alabak D ereduan **eskolatuko** ditut. Berria - Euskal Herria

Ni judua naiz, Ziliziako Tarson jaioa, baina hiri honetan hezia eta, Gamalielen ikasle izanik, gure arbasoen legean arretaz **eskolatua**. Elizen arteko biblia

Nihaur ezen Nafarroak nau sortua, Gaztela Berriak Alcalan **eskolatua**, Frantziak gizon heldu egina, Gaztela Zaharrak Salamancan goraipatua, Portugalek apaindua. Piarres Xarriton

Arabiarra, pobrea, baina **eskolatua**. Berria - Harian

Soziolinguistikak ere izugarri **eskolatu** gaitu. Iñaki Segurola

Eskularikoek dituzte **eskolatu** garaztarrak. Herria

2 (da aditz gisa)

Gaztedanik Alcalako Akademia arrakastatsuan hainbat ongi **eskolatu** nintzen gai liberaletan eta filosofia naturalean eta moralean. Piarres Xarriton

3 irud/hed

Rene ere ez dugu ahantziko segidarendako, hunek, joko eta borondate gehiagorekin aise **eskolatu** baitu donazahartarra, 9-0 hasirik. Herria

Artzain onaren artaldera zentzatua eta ondo **eskolatua** itzulirik, aurrerantzean santutasun handiz bizi izan zen. Askoren artean

4 (era burutua izenondo gisa)

Gainera, jende ikasia zen, **eskolatua**. Bernardo Atxaga

Ordurako, Tomas gizon **eskolatua** zen eta apaiza seguruenik. Askoren artean

Gizon **eskolatua** zen hau eta Siguenzan graduak hartua. Patxi Ezkiaga

Greziatik erromatar aberatsek inportatzen zituzten esklabo **eskolatuen** antzeko baikinen. Juan Garzia

Noizbait, bretainiar frantses **eskolatu** bat joan zitzaion baserrira bisitaz. Itxaro Borda

Ivan Ogareff militar **eskolatua** zen, baina buruzagi tatariarrak bezain ikaragarria. Karlos Zabala

Urte berean, anai Zesareok, Würzburgera heldurik, Hartmuth izeneko gazte trebe eta **eskolatu** bat hartu zuen Ordenan. anai Simon Magdeburgera bidali zuen lehen irakasle bezala, eta harekin batera beste hainbat gizon zintzo, prestu eta **eskolatu**. Askoren artean

Luzaro gabe zenbait gizon **eskolatu** eta noble elkartu zitzaizkion haren biziera hartzeko gogotsu. Askoren artean

Kultur egarria ulertu ezin zuen ingurune horretan, Baserriren mingain **eskolatuak** bazuen meriturik. Anjel Lertxundi

Laboraria tresnatua da orain, **eskolatua**, argitua. Herria

Ez zara euskaraz **eskolatua**. Berria - Kultura

Eskolatua nauk, ondo hezia, buru-jantzia. Jose Morales

Ez dituzte alabainan aski ontsa **eskolatu** peko zituzten polizia gizonak, behar zela bakarrik nahasle multxoari buru egin eta ez manifestatzile baketsueri. Herria

---

eskolatxo *iz* eskola xumea.

Urte hartan ez nintzen eskolara joan: gure auzoko **eskolatxoa** aurreko udazkeneko gau batez suntsitu zen, bolada latz hartan hegazkin amerikarrek gure gainera botatako suzko zaparrada haietako baten erdian. Alberto Ladron Arana

---

eskolatzaile *izond* eskolatzen duena.

Zuraideko Atzarrin ez dituzte lo uzten pilotari gazteak hango **eskolatzaile** bipilek. Herria

Eta berdin atseginez ere ikusten Milafrangarra gazteago horien artean, denek baitute, ikusleak barne, holako **eskolatzaileen** beharra. Herria

Erran behar da aski goxoan zela Donoztiriko amaturra ere Patrik Ezcurra bezalako **eskolatzaile** batekin. Herria

Abestiak aipatzean, berriz ere nabarmen geratu zen pastoraleko lehendabiziko errient anderea izateaz gain, kantuen **eskolatzaile** ezin hobea dela Sophie Larrandaburu.

Berria - Kultura

Azken hau izan da pastoraleko dantzarien **eskolatzaile**. Berria - Kultura

---

eskolatze 1 *iz* eskola hartzea.

Eskolatzea: 15 eta 24 urte bitarteko gazte gehienak (%59,1) ikasten ari dira. Berria - Harian

Umeen **eskolatze** eskasa Hirugarren Munduan eta horrekin batera etorri ohi den haurren esklabutza. Berria - Kultura

Haurren **eskolatzea**, esaterako. Berria - Ekonomia

Eskolatze berezirik izan ez balute -askorentzat haurtzaindegian edo etxean hasi zen **eskolatze** berezia-, larriki bakarturik eta ezgai jarraituko zuten gazte autista haiek, adimen eta jatorri onekoak izan arren haietako asko. Xabier Olarra

Jaurlaritzaren arabera, azken urteotan lau arlotan eman dituzte ijitoek aurrerapauso aipagarrienak: ijito elkarteen hazkunde nabaria, ijitoen kultura ezagutzera emateko hainbat erakundek hartu duten erabakia, Ijitoen **eskolatze** gero eta handiagoa, eta hazten ari den teknologia berri eta komunikabideetarako sarrera. Berria - Euskal Herria

Ikasle etorkinek hezkuntzan dituzten hiru premia nagusiak aipatu zituen Olasagastik: «Hizkuntz premiak, sarritan ez baitakite ez euskararik ez gaztelaniarik; curriculum premiak, aurreko **eskolatzearen** edo **eskolatze** ezaren ondorioz; eta tutoretza premiak, bai ikastetxean bai gizartean integratzeko». Berria - Euskal Herria

Alabaina, laguntza publikorik ezean, **eskolatzearen** gastuak Seaskaren gain dira, eta, horretarako, 53.000 euro lortu nahi ditu Irratseiren bitartez. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskolatze denboraldia edo zorionaren bideak. Herria

Hedabide honek urte amaieran ezagutarazi zuen bezala, **Eskolatze** Batzordea Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ari da lanean. Berria - Euskal Herria

Bizkaiko Herri Auzitegiak aitortu zuen adingabeek eskolara huts egiten zutela, baina ukatu zuen **eskolatze** prozesua abandonatu zutela. Berria - Euskal Herria

Desberdintasun handiko herrialde guztietan, kasu, guraso aberats eta kualifikazioko seme-alabek beti dute **eskolatze** maila garaiagoa eta hobea izateko aukera handiagoa. Iñaki Heras

Are beharrezkoagoa da eskolara datorkigun ikasleak (eta familiak) bertako kultura eta **eskolatze** ohiturak ezagutzen ez baditu. Berria - Euskal Herria

Iranen eta mendian egin nuen aldiaren **eskolatze**-agiria ez zidaten onartu; eskola bera topatu nuen, gela bera, aulki bera. Juan Kruz Igerabide

Eskolatze-liburua entregatu zuten berak, eta ni argazkiak ateratzera joan nintzen fotomatonera. Jesus Mari Mendizabal

Eskolatze gastuak entraalekoak dira, ahal guttiko familientzat eskolatzea urririk delarik. Herria

Alde batetik, ijitoek ez dute eslovakiera menperatzen, **eskolatze** faltagatik, eta, bestetik, erakunde sozialak ijito ez direnen neurrira eginda daude eta ijitoak galduta sentitzen dira. Berria - Mundua

Horretaz gainera, planaren helburua da sasoiko langileekin lotutako adingabeen **eskolatze** maila handitzea, besteak beste, garraioari eta eskolako jatetxeei laguntzak emanez. Berria - Ekonomia

Gaur egun EAEn dugun unibertsitate mailako **eskolatze** tasa oso handia da, eta nekez joango da askoz ere gorago. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Diote erabakiak hankaz gora jartzen duela 16 urte arteko derrigorrezko **eskolatzea**. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **derrigorrezko eskolatzea** (3); **eskolatze tasa** (10); **etorkinen eskolatzea** (4); **haurren eskolatzea** (5)

---

eskolau *iz* eskolania bateko kidea.

Nolabait esan, xantrea eta **eskolaua**, batez ere, kantuaz arduratzen ziren hasiera batean, eta sakristaua ez preziski, baina, atzenean hiruek zizuten eginkizun berdintsua: apezak lagundu elizako zeregin aunitzetan. Patziku Perurena

Horra hor, nondik ateratzen ziren gero xantre, **eskolau** eta sakristau asko. Patziku Perurena

---

eskolaume ik **eskola 2**.

---

eskolaurre *iz* lehen irakaskuntzaren aurreko irakaskuntza.

0 eta 3 urte arteko zikloak **eskolaurre** izena hartzen du, eta ez da derrigorrezkoa. Berria - Euskal Herria

Eskolaurretik beti gela berean. Xabier Mendiguren Elizegi

Jolasleku publikoko zabu biribilean, **eskolaurreko** umeek bultza egiten zieten beren buruei, zoriontsu eta zorabiaturik, "Bultza!" eta "Bultza!", edo "Ooo! Koro Navarro

Lasai, ez dago sekretua gorde beharrik; **eskolaurreko** mukizu atzeratuenek ere badakite-eta horren berri. Patxi Iturritegi

Beheko aldean, **eskolaurreko** gelak zeuden. Jokin Muñoz

Eskolaurreko adinean dauden umeetatik ehuneko 61a guraso edo familiakoen ardurapean dago, eta ez haur-eskola batean. Arantxa Iturbe

Urte batean bakarrean ibili nintzen zorionetan eskolan; **eskolaurreko** azken urtea zen, Marie izeneko andereñoarekin. Jesus Mari Mendizabal

---

eskolazain *iz* eskola zaintzen duen pertsona.

Zaindariak esan zion osabari **eskolazaina** izanikoa zela. Monika Etxebarria

Niri bultzaka hiru **eskolazain**, sei ikasle eta han barna pasatzen ari zen elbarri bat. Fernando Rey

Eskaileratik igotzean ganbara batean sartzen zinela zirudien, ganbara baxua eta pikoa baitzen ganbaretan bezala, eta **eskolazainek** beti sekulako kolpeak hartzen zituzten buruan. Pello Lizarralde

---

eskolazale *izond* eskolaren zalea dena.

Hans herritik urruti ari zen lanean, basoan; Peter **eskolazalea** zen, bazekien italieraz, eta hamabostean behin etortzen zen eskolatik etxera. Josu Zabaleta

· Holako emaitza eder bat zor da Martine Bordaxar eta Jakes Jaragoien dantza **eskolazaleek** egin düen lan handi eta baliosari. Herria

---

eskolemaile ik **eskola 2**.

---

eskoletxe ik **eskola 3**.

---

eskoliasta *iz* eskolio-jartzailea.

Azkenean, beste nora jorik ez dugu: Ateneo, Aulo-Gelio, **eskoliastaren** bat edo beste, eta Diogenes Laerzio, zeinak pentsatu baitzuen filosofiaren historia moduko bat ondu zuela. Juan Garzia

---

eskolier *iz ipar* eskola-ikaslea.

Saristatuak izanen dira besteri buruz marrazki lehiaketan lan pollitenak egin dituzten **eskolierak**. Herria

Gauza loriagarria da ikustea zein suharki ari den josteta **eskolierrekin**, haientzat lagun bat gehiago balitz bezala, hala nola pilotan, lasterka, eta edozein kirol motetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez zen **eskolierentzat** gauza nekea, mail hortan dakitenarekin, bainan zonbaitek nahi zuten jakin nun debru zen Hazparne. Herria

Ez zen **eskolierentzat** gauza nekea, mail hortan dakitenarekin, bainan zonbaitek nahi zuten jakin nun debru zen Hazparne. Herria

Agian izanen ditu eskolatzaile onak, **eskolier** on batek bezala entzun nahiko dituenak. Herria

Goraintziak ekarri dizkiot bere lehengo **eskolierren** partez, hori ere ez baituke guti preziatu hainbeste urteren buruan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eskolier urte haietan, ez dakit xuxen nola sartu nintzen frantsesean, baizik hastapenean nekez arizan nintzela. Piarres Aintziart

---

eskolio azalpen oharra, iruzkin oharra.

Kroniketan, memorietan, gutun-trukaketetan eta **eskolioetan** aurkitzen da haien obra. Juan Garzia

Hortik dator, argi eta garbi, lehenbizikorik, bakarra dela Jainkoa, erran nahi baita [...] substantzia bakar bat baizik ez dela Izadian eta hura absolutuki mugagabea dela, 10. Proposizioaren **Eskolioan** jadanik adierazi dugun bezala. Piarres Xarriton

17. Proposizioaren **Eskolioan** adierazia dut nola ezagutzarik ezean datzan errakuntza. Piarres Xarriton

Proposizio hau Zati honetako 15. Proposizioaren bide beretik demonstratzen da, Zati honetako 18. Proposizioko **Eskolioarekin** batera ikusi behar dena. Piarres Xarriton

Ondorioz, (**Eskolio** honetan jadanik erakutsi den bezala) substantziaren izaerari dagokionez geroz existitzea haren definizioak eduki behar du baitezpadako existentzia eta, beraz, substantziaren definizio soiletik atera behar da haren existentzia. Piarres Xarriton

Proposizio hori aitzineko Proposiziotik argi eta garbi datorkigu, baina nabarmenago oraino aitzineko **Eskoliotik**. Piarres Xarriton

Kontraesan nabarmen horretatik sortzen da Kritiasen izaera zuzena azpimarratzen duen **eskolio** platoniko ospetsu bezain harrigarria: [...]. Askoren artean

Ezta modu geometrikoan egina duen osaera bereziarengatik ere, perpaus, axioma eta **eskoliozko** hoztasun zurrun horrengatik, zeina den mutur susmaezinetaraino tenkaturiko pentsamenduaren errainu eta diziplina intelektual zorrotzaren fruitu. Piarres Xarriton

---

eskolordu ik **eskola 5**.

---

eskolta *(orobat **eskorta** g.er.)* **1** *iz* norbait eskoltatzen duen pertsona edo pertsonak, eskuarki poliziak edo soldadoak.

Esan Fortinbrasek duela, beraren baimenarekin, sarbide eta **eskolta** eskatzen, agindu bezala zeharkatzeko bere osteekin beraren erresuma. Juan Garzia

Gobernuak **eskolta** eskaini die greba utzi, eta oinarrizko produktuak hiriburura eramateko prest dauden garraiolariei. Berria - Mundua

Zarautzaino ezin zigula **eskoltarik** jarri, baina handik Loiolara **eskoltarekin** joango ginela. Inazio Mujika Iraola

Han, auzitegiko beste **eskolta** batek inguraturik, berehala epailearen bulegoraino. Filipe Bidart

"Kasaka gorriak!" egiten zuten oihu **eskoltako** soldaduek. Jon Alonso

Ezin kalkula zitekeen jazarleen kopurua, baina ziur esan zitekeen erregeen **eskoltako** gizonak baino gehiago zirela. Agustin Otsoa

Erregearen **Eskoltako** Zaldizkoak tumuluaren inguruan zamalkatu ziren orduan, zaldi zurien gainean. Agustin Otsoa

Tiroketa batean hil zuten **eskoltaren** kasua irekitzeko eskatu dute. Berria - Euskal Herria

Biktima batzuk ezagutzen ditut, familiakoen erailketa bizi izan dutenak, baita azken urte luzeetan **eskoltarekin** bizi beharra izan dutenak, edo eta, ETAren mehatxupean iraultza zerga ordaindu dutenak. Berria - Euskal Herria

Zaintzaleen **eskolta** lehenik presondegi ateraino. Filipe Bidart

Hala sartu ginen Ibarbiaren automobilean, eta, gudari gutxi batzuk **eskoltatzat** gure atzetik hartuta, Beizamatik barrena igo ginen gudu-lerroraino. Inazio Mujika Iraola

Turistaz beteriko hegazkin batean iritsi zen, **eskoltarik** gabe, tartean polizia sekretaren batzuk bazetozela uste duen arren. Pako Aristi

Intxortako ekialdean bakarturik, Ubera ibarreko ardatzean zegoenez, erakargarria gertatzen zitzaien etxea, antza, Heinkel 111 eta Junker 52 bonbaketarien **eskolta** gisa pasatu ohi ziren Heinkel 51 ehiztariei. Ramon Saizarbitoria

Eskoltako beste militar batzuk hauei laguntzera hurbildu zirelarik gertatu zen bigarren leherketa eta honek zuen eragin 5 soldadu israeldarren hiltzea eta dozena bat palestinarren zauritzea. Berria - Mundua

Erregeak saldukeriaz akusatu zituen bost parlamentari -garrantzitsuenetakoak, parlamentuaren eskubideak sutsuen defenditzen zituztenak-, eta **eskoltako** bizkartzain batzuekin parlamentu barrura sartu zen, bost diputatu horiek atxilotzeko asmoz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Behar den zoinu guziarekin, estekaturik ereman dute, amerikano **eskorta** batekin gainera. Herria

· Haien lana, niri **eskolta** ematea Frantziako erregeren lurren mugaraino. Aingeru Epaltza

Eskolta ematen dio diligentziari. Koldo Izagirre

Asisko agintariek **eskolta** jartzen diote Frantziskori, inongo hirik hura bahitzeko tentaziorik izan ez zezan, denek nahi baitzituzten Frantziskoren erlikiak. Askoren artean

Lurjabe txikiei mintzaldi bat ematera zetorren federazioko arrain lodi bati **eskolta** egiteko aitzakiarekin. Koldo Biguri

2 irud/hed

Bizitzaren lehengaia, hazten den guztiaren **eskolta** iraunkorra eta haragi ororen azken patua den gas hori [anhidrido karbonikoa] ez da airearen osagairik nagusienetako bat, baizik eta hondar irrigarri bat. Juan Garzia

Berak ere ez dakiela zergatik etorri zen Francisco Franco autoz, hainbat izurde harrapatua zen Azor yatean edo hari **eskolta** ematen zion Hernán Cortés destroierrean etorri ordez. Koldo Izagirre

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Denboraz joanak ginen obispoarekin Karmen, Ibarbia eta ni neu, **eskolta** txiki batekin, eta bentan itxaron genuen, ordua iristen zen arte. Inazio Mujika Iraola

Han aurkitzen nuen beste eskolta bat, jendarmeen **eskolta** berezia. Filipe Bidart

Dohaineko **eskolta** eta guzti eduki zezakeen, nahi izanez gero. Harkaitz Cano

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kolpez gelditu zen gure atzetik **eskolta** lanetan zetorren kamioia, eta berehala jaitsi ziren gudariak. Inazio Mujika Iraola

· Lehenxeago zabaldu denez, Nicole Kidman eta Michael Schumacher ere haien artean dira, propio kontrataturiko launa **eskolta**-gizon armaturekin. Patxi Iturritegi

Gero gorpua auto batean sartu, **eskolta** soldadu bat ipini (mozkorti batekin egingo zen legez) eta San Pedro eta San Pabloko ospitale militarreko oblitoriora eraman zuten. Pablo Sastre

5 (saskibaloian)

Izen handiko fitxaketa garesti bi egin zituzten sasoi hasieran Euroligako Lauko Finala jokatzeko, Marcus Brown **eskolta** eta Daniel Santiago pibota. Berria - Kirola

1,90 metroko garaierarekin joko banatzaile eta **eskolta** bezala jokatzeko erraztasuna du. Berria - Kirola

Hornetsena izan zen partidaren lehen laurdena, 37-16 ziren aurretik berau bukatzean, baina Lebron James **eskoltak** Cavaliers garaipenera eraman zuen. Berria - Kirola

Ikusmin handia sortu du Serbiako **eskoltak**, baina ikusteko dago Valentzian bere neurria emango duen; beste izar askok kale egin dute. Berria - Kirola

Kanpoan jokatzen dutenek hegaleko, **eskolta** eta joko banatzaile lana egin dezakete, eta aurkariari hamaika arazo sortu, defentsan adi egoten ez bada. Berria - Kirola

Azken minutuetan Jordi Grimauk eta Oscar Garciak jokatu zituzten minutuek baino ez zuten giroa sortu, **eskolta** gaztearen hiruko bat saskiratuz. Berria - Kirola

Real Madrilek **eskolta** bikote fina du. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ene eskoltarekin (3); **eskolta ematen** (4); **eskolta eta** (5); **eskolta gisa** (3); **eskolta izan** (3); **eskolta izan zen** (3); **eta eskolta** (5)

---

eskoltatu, eskolt(tu), eskoltatzen **1** du *ad* norbaiti lagun egin, babesteko edo ihes egin dezan galarazteko.

Browne jauna zetorren atean aurrera, izeba Julia galaiki **eskoltatzen**, eta izeba Julia, Browne jaunaren besoan bermaturik, irribarrez eta buru-makur. Irene Aldasoro

San Migel santutegiko erretaula Iruñean dago atzoz geroztik, Baluarteko sotoetan, Aralarko elizatik eta hiriburura arteko bidea foruzainek **eskoltatuta** egin eta gero. Berria - Kultura

Bidaiako azken zatia Espainiako Poliziak **eskoltatuta** egin zuen zaleek. Berria - Kirola

Erregea, zaindariek **eskoltaturik** eta Merry ondoan zuela, Gotorlekuko atetik behera joan zen zaldizkoak batzen ziren lautadaraino. Agustin Otsoa

Denak elkarrekin, soldaduek **eskoltaturik**, heldu ziren Vianara. Koro Navarro

Gelartean Guido eta Aldorekin topo egin genuen; hantxe zihoazen, beste begirale batek **eskoltaturik**, galdararen sapa haustsuan guk utzitako lekua hartzera; buruaren keinu batez agurtu ninduten. Juan Garzia

Gaza eta Zisjordania lotzeko aukeraz hitz egiten ari gara eta litekeena da laster **eskoltatutako** karabanak martxan jartzea. Berria - Harian

2 irud/hed

Txalo-zizpakada desberdin batek **eskoltatu** zuen orduan izeba Julia pianoraino. Irene Aldasoro

Pleonasmo [...]: Pentsamenduaren kaporal bat **eskoltatzen** duen hitzezko armada. Xabier Olarra

---

eskolume ik **eskola 6**.

---

eskolumekeria *iz* eskola umearen egintza gaitzesgarria.

Gaza eta Zisjordania lotzeko aukeraz hitz egiten ari gara eta litekeena da laster **eskoltatutako** karabanak martxan jartzea. Berria - Harian

---

eskomikatu ik **eskumikatu**.

---

eskomikatze ik **eskumikatze**.

---

eskomiku ik **eskumiko**.

---

eskomunio *iz* eskumikoa.

Aitasantuak ez duela inolako ahalmenik erregeari ezein eskubide kentzeko **eskomunioa** erabiliz. Juan Martin Elexpuru

---

eskonbro *(orobat **eskonbru** g.er.) iz pl* lan hondakinak.

Isilik geratu zen eta, burua ileetatik heldu eta aurpegia asunen eta **eskonbru** hondarren kontra jo nion. Joseba Sarrionandia

Frontoi izkinako zulotik alanbrada pasatu eta, hango sasi eta **eskonbroen** artean, laster egin zen zirkulua Goioren inguruan, bera ailegatu baitzen lehenengo. Joseba Sarrionandia

---

eskonbru ik **eskonbro**.

---

eskonfa *iz* **

Hantxe dastatuak baituen nik lehenengo aldiz, txokolate katiluaren ondoren, "ura eta **eskonfa"** famatuak. Txillardegi

Txokolate beroa katiluan zerbitzatzen zitean; paper finetan bildutako **eskonfa** txuri harro galant bat, batera; eta pitxar bat ur, fresko-freskoa. Txillardegi

Eskonfa zuri harroa urtu egiten zen pixkanaka, eta ura gozatzen. Txillardegi

---

eskopeta *(orobat **eskupeta** g.er.)* **1** *iz* fusil arina, eskuarki ehizan egiteko erabiltzen dena.

Bi mando ere bageneramatzan, jatekoen eta ehizarako tresnen garraiatzeko: bi **eskopeta**, munizioneak, sokak, eta gainerakoak. Joan Mari Irigoien

Piezaren bat usaindu zuelakoan, segurua kendu **eskopetari** eta, kanoiari ezkerrarekin eutsiz, eskumako hatz erakusleak katua laztandu zuen, leun eta goxo. Joxemari Urteaga

Ondo zaindu ganadua, trangatu ganbarako atea, sartu perdigoiak **eskopetari**! Anjel Lertxundi

Pistola poltsikoan gorde, **eskopeta** bizkarrean zintzilikatu, eta ganbaratxora igo nintzen. Juan Kruz Igerabide

Eskopetarekin jolasean ari zirela lehertu egin zitzaion bere anaiari aurpegian. Harkaitz Cano

Aita, ondo gogoratzen dut, hormatik **eskopeta** hartu, kargatu, besapean jarri eta ezer esan gabe etorri zen gure atzetik. Koldo Biguri

Santa Kruz ere, apaiztu berri, etsai beltz liberalak ikusirik, haien bila irten zela **eskopeta** hartuta Euskal Herriko mendietan barrena. Anjel Lertxundi

Eskopeta sorbaldatik zintzilik zuela itzuli zen, txistuka, gaurdaino mantentzen zuen irribarrearekin. Harkaitz Cano

Leihotik **eskopetarekin** jendeari tiroka hastea. apuntatu zuen Mattinek **eskopeta** piztiaren kontra, baina ez zuen desarratzen Gero **eskopetarekin** apuntatu eta tiro bat eman zion. Koldo Biguri

Berak ere ez du hitzik atera, baina han egon da, nik agindu moduan lekuko, bere **eskopeta** niregana noratua, nire salbazioa. Koldo Izagirre

Lehen keinua egin bezain laster joko nion tiroa, eta, kale eginez gero, **eskopeta** hustuko nion. Juan Kruz Igerabide

Herrian askok ez zekiten nola irtengo ziren etxetik: **eskopeta** kartutxoz ala balaz kargatuta. Koldo Biguri

Orduan anaia batek jaikitzera egin zuen, eta besteak oheratzera, arropak lurrera bota eta **eskopeta** entengan zintzilikatuz. Pako Aristi

Errepidean pintxoak, patrol bat, kañoi handiekiko **eskopetekin** hiru guardia maskaratu, honago beste bat, hura maskara gabe, gaztea, autoak banan-banan begiratzen ari zena. Pablo Sastre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bi kanoiko **eskopeta** moderno bat. Koldo Biguri

Kanoi biko **eskopeta** kargatu batekin. Koldo Izagirre

Eskopeta irekian bi kartutxo sartu zituen Freddy Greenek ere, poliki itxi aurretik. Joxemari Urteaga

Halako hotsa egiten dik esate baterako sastakai batek beste batekin talka egitean edo **eskopeta** ingeles on batek norbait hiltzeko kargatzen denean. Xabier Olarra

3

Han genian ehiza-zaina zakurrarekin gure zain, **eskopeta**-hotsa aditzen zuan bailaran: hasia zuan ehizaldia. Xabier Olarra

-Ez dira **eskopeta**-tiroak izan, Marisa. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere eskopeta (7); **bi eskopeta** (3); **bi kanoiko eskopeta** (4); **eskopeta bat** (13); **eskopeta baten** (3); **eskopeta besapean** (3); **eskopeta bizkarrean** (3); **eskopeta eskuan** (5); **eskopeta eta** (6); **eskopeta hartu** (16); **eskopeta hartu eta** (9); **eskopeta tiro** (5); **eta eskopeta** (8); **kanoiko eskopeta** (4)

---

eskopetadun *izond/iz* eskopeta duena.

Irteterakoan, baina, atzeratuta gelditu zen gizon-taldeko **eskopetadun** batekin egin zuen topo. Anjel Lertxundi

Kontuak ez zuen bi segundo iraungo, baina nahikoa **eskopetadunaren** susmo txarra pizteko, eta, pentsaturik eskekoak zerbait ezkutatu zuela ur bedeinkatuaren pontean, **eskopetadunak** geldi! Anjel Lertxundi

Bolada batean ez da **eskopetadunik** ibiliko etxe eta baratze artean. Berria - Euskal Herria

Atzetik, ia berehala, **eskopetadun** gizonezko bat hurreratu zitzaion. Joxemari Urteaga

---

eskopetakada *iz* eskopeta tiroa.

Esan bezala, **eskopetakada** oker batez, itsu geratu zen Abbadia bi urtez edo. Hasier Etxeberria

---

eskopetari *iz* eskopeta erabiltzen duena.

Nirekiko daukat aristokrata zorriberri askori gustatuko litzaiekeela halako margolana edukitzea, ehizaldi baten ostean **eskopetari** taldeari harro-harro erakusteko. Javi Cillero

Campolungon, semeak, semeen semeak, alaben senarrak eta ilobak kontatuz, punteria oneko hamabost **eskopetari** bildu ahal zituen-. Koldo Biguri

---

eskopetazo *iz adkor* eskopetakada.

Norbait gerturatzen ari zen, pauso gutxitara zegoen eta ezin handik hanka egin **eskopetazo** bat hartzeko arriskurik gabe, ezen oraingoan benetan baitzen basozaina harantz zihoana. Koldo Biguri

---

eskopetero **1** *iz* eskopeta daraman pertsona.

Ehiztaria ala **eskopeteroa** da zure laguna? -galdetu zion berriro aurreko hitzei kasurik egin gabe. Joxemari Urteaga

2 Irungo edo Hondarribiako alardeetan eskopetarekin doan pertsona.

Emakumeen berdintasun eskubidearen arabera, **eskopetero** gisa desfilatzeko eskubidea dute Hondarribiko alardean. Berria - Harian

Ramon Murua **eskopeteroaren** iritziz, Jaizkibel «aurrera» doa. Berria - Harian

Anjel Alkain **eskopeteroa** ere antzera mintzatu zen. Berria - Harian

---

eskopiko *izond*

Irrika **eskopikoa** deitu ohi dena irrikaren kontzeptu orokorraren kasu berezi bat da, beraz -definitu berri dugun zentzuan-. Josu Zabaleta

Aise ulertzekoa da irrika **eskopikoaren** kontzeptu hau, ikusi beharra eta begiratu nahia lotzen dituena, baliagarri gertatzea irudiei dagokienez. Josu Zabaleta

Irrika **eskopikoa**, ikusi beharra baliarazten duena, ez da, jakina, organo baten atseginari darraizkion oinarrizko irrika handi lehen mailako horietakoa, irrika orala, adibidez (abereak duen elikatu beharretik sortua); giza psikismoaren ezaugarrizko irrika da, instintuak bazterturik irrikak baliatzen dituen zentzuan. Josu Zabaleta

Irudia ikusteko egina bada, irrika **eskopikoa** (partez bederen) asetzeko egina baldin bada, era berezi bateko atsegina sortu behar du. Josu Zabaleta

---

eskoptofilia *iz* norbait biluzik ikustean sentitzen den kitzikapena.

Sexu-desberdintasuna eta **eskoptofilia**. Josu Zabaleta

---

eskoratu, eskora(tu), eskoratzen **1** itsasonziez mintzatuz, aldamen batera makurtu.

Denbora pasatu eta hala topatuko duzue ikatz harriz egindako eliza hondatu hori, ikatz meatzeak, bagoneta trabes **eskoratua** trenbide abandonatuan, burdinazko armazoiak, moila zaharra. Joseba Sarrionandia

Hango nasa buruan zegoen ontzia, Goiok berea esaten zion enbarkazioa, bazterrean estekatuta aspalditik, hondoak behea jotzen ziola, mareabeherarekin **eskoratuta**, eta abandonatua. Joseba Sarrionandia

Hor izango dira oraindik hiria izan zitekeenaren hezurdura idortuak, moila zurkaiztua, burdinazko eta harrizko eraikin hondatuak, bagoneta **eskoratuak**. Joseba Sarrionandia

Kalatxorien tamainako hegazti zuriak helduko dira, ontzi geratu eta **eskoratuaren** gainean hegan jirabiraka. Joseba Sarrionandia

2 irud/hed

Ageriki ikusi baitugu askotan tradizio filosofikoa arrazialtzen duela, xehekiago jorratu beharrean gelditzen da, teoriko hutsa dirudien hainbat beste kapitulutan ere (bitalismoa, historizismoa), Ortega-ren pentsamendua arrazialismoak **eskoratua** nola dagoen. Joxe Azurmendi

---

eskorbuto *iz* C bitaminaren faltak eraginiko eritasuna, odoljajrioak eta hortz oiak hondatzea dakarrena.

Eskorbutoak edo beriberiak jota hiltzen ziren asko eta asko. Koro Navarro

Anemia, **eskorbutoa** edo antzeko zerbait susmatuko duzu. Joseba Sarrionandia

Montalibeteko jauregian **eskorbutoaren** kontrako hauts haluzinagarriez beteta aurkitu zuten egurrezko mortairuarena... Anjel Lertxundi

Franz izeneko mutiko bat ere **eskorbuto** sintomekin dagoela uste izango duzu. Joseba Sarrionandia

---

eskorga *(orobat **esku orga** g.er. eta **eskuorga** g.er.) iz* eskuz erabiltzen den orga.

Osaba argala, gau batean, Orso Nerok aginduta, **eskorga** hartuta jardin publikoetara joan zen burdinazko jarleku bat lapurtzera. Pello Lizarralde

Iluntze batean, ibaitik bueltan zatozela, otarrea astunagoa irudituko zaizu, eta **eskorga** bultzatzen zailagoa; belauniko eroriko zara giderren artean, sudurra askan garbitu berri dituzun arropetan, eta galdua izango zara. Itziar Otegi

Lorez betetako **eskorga** bat zekarten, eta zeharo harrituta geratu ziren loreontzia beteta ikustean. Julen Gabiria

Huraxe eramaten zuten **eskorga** banatan Bittorrek eta bere lagunek ibaiari egiten ari ziren euskarriko hesiaren eta errepidearen artean gelditua zen hutsartea betetzearren. Koldo Izagirre

Motordun **eskorga** gidatzen ari zela malda batetik behera erori zen. Berria - Ekonomia

Seietako iratzargailuaren orroa ikaragarri zaigu, haragiak, oraino osoki errekuperatua ez dela, ohean berean inarrosten gaituelako, sega zahiz hanpatu **eskorga** herdoilduaren antzera. Itxaro Borda

Egunsentian, eruditoa ikusten du aretotik irteten, **eskorga** liburuz mukuru beteari bultzaka. Jon Muñoz

Bizkarra atean bermaturik, Harland bere pipa ordurako itzalia zupatzen ari zen, **eskorga** hutsen ilarei eta pikatxoi eta pala piloei begira. Lopez de Arana

Masailak gorrituak, zabor **eskorga** kale erdian plantatu zuen Pikutak, behin eta berriz eta gogotik elurra zanpatu zuen. Pablo Sastre

Bat-batean jiratu eta sartu ziren erdian etxebizitza handi bat zegoen espazio batean, garabiez, zutikako eskailerez, zutoinez eta habeez, **esku orgez**, adreilu mordoez inguratua. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskorga bat (3)

---

eskoria *iz* zepa, meen edo kidekoen erreketaren hondakin gotorra.

Zaborra erraustu eta gero geratzen den **eskoria** edo zepa eta errautsak zabortegi berezi batera eraman behar dira. Berria - Euskal Herria

---

eskorpioi **1** *iz* armiarmaren klaseko animalia, sabelaldea isats gisakoa eta azkazal pozoitsu batez bukatua duena *(Buthus occitanus).* ik **arrabio**.

Eskorpioiak ez du suz inguratuta dagoelako hil behar duen kontzientziarik, eta inola ere ez du berariaz eztena bizkarrean sartzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Begiratu eta hustu egin behar dira, inurriak, labezomorroak, **eskorpioiak** ateratzek. Joseba Sarrionandia

Eskorpioiak bere buruaz beste egiten duela esan zuen -egia ez den leienda hori asko zabaldu zen- eta gure garaietaraino iritsi da uste hori **Eskorpioiek** bezalako isatsak zituzten, eztenez hornituak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horiek emandako oinazea **eskorpioien** ziztadarena bezalakoa da. Elizen arteko biblia

Emakume gaiztoa idiei gaizki lotutako uztarria bezala da, halakoarekin ezkontzea **eskorpioiari** heltzea bezala. Elizen arteko biblia

Mantikora: piztia mitikoa, lehoiaren gorputz eta gizakiaren aurpegia duena, eta batzuetan arantzurdearen zurdak edo **eskorpioiaren** isatsa. Iñaki Mendiguren

Goizean jagi eta jantzi orduko, oina sartzerakoan, oinetakoaren barruan **eskorpioi** beltz bat topatu dut. Joseba Sarrionandia

2 zigortzeko tresna, muturrean bihurrituriko puntak dituena.

Iparramerikar ez zena konforma zitekeen arren iparramerikarren zartailuak errusiarren **eskorpioiak** baino hobe zirela pentsatuz [...]. Iñaki Mendiguren

Makinek gizon asko behar izaten dituztela indar handiagoa egin behar izaten delako beren efektua lortzeko, adibidez balezten eta dolareen kasuan; tresnetan, aldiz, langile bakar batekin, zentzuz erabiltzen bada, lortzen da lortu beharrekoa, adibidez **eskorpioien** edo anisozikloen biraketen kasuan. Santiago Iruretagoiena

Balezta, katapulta eta **eskorpioiak** behar bezala teinkatzeko gai izateko. Santiago Iruretagoiena

Horregatik Marko Aureliorekin, Publio Minidiorekin eta Kn. Korneliorekin saiatu naiz baleztak, **eskorpioiak** eta bestelako gerra-makinak eraikitzen eta konpontzen. ezker-eskuin geratzen diren dorreetatik etsaiari aurre egingo zaio **eskorpioi** -makina eta bestelako jaurtikiekin erasoz. Santiago Iruretagoiena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskorpioiak eta (3); **eta eskorpioiak** (3)

---

eskorta[1] **1** *iz* abereak gordetzeko esparru hesitu eta sabairik gabea. ik **korta; abeltegi**.

Mandioak egin zituen, gari, ardo eta olio-uztak gordetzeko, bai eta ikuiluak ere era guztietako abereentzat, eta **eskortak** artaldeentzat. Elizen arteko biblia

Eskorta edo oilategi txiki hura oholesi batez inguraturik zegoen. Jose Morales

Otsoak sartu baitira **eskortan**, azeriak ere bai oilategian. Anjel Lertxundi

Etxeak bazuen atzeko aldean adobezko hesi-horma bat, arbaztaz estalia, barruan ukuilua, gurdiarentzako teilapea, aihendegia, dolarea, bodega, olio-errota eta zenbait patio eta **eskorta** hartzen zituena. Josu Zabaleta

Eskortak harrizkoak ziren; ganadua ugaria, argala eta adar-luzea zen; zaldien isats zurrunbilatuak lurreraino iristen ziren. Juan Garzia

Bertara hurbiltzenago, hiri-kanpoko bihitegiak, ferratzailearen estalgunea, ardi triskilatu berrien **eskorta** nabarmenagotzen hasi zen Nora zeru urretsuaren kontra. Anjel Lertxundi

Ez dizut eskatzen zeure ikuiluko zekorrik, ez zeure **eskortako** akerrik. Elizen arteko biblia

Mahastiak eta mahastiak baizik ez zen ikusten begiak harrapatzen zuen eremu guztian; **eskortaren** batzuen hesien barruan bakarrik ikusten zen pikondoren bat edo beste, bere hosto zabal, ilunak zabaltzen. Josu Zabaleta

Eskortara itzultzen den ardi deslai bat bezala. Juan Garzia

Lortutako hegaztien 934 laginetatik 778 **eskortetako** hegaztienak dira eta 156, berriz, basa-hegaztienak. Berria - Euskal Herria

Tonkov errusiarrak irabazi du 17. saioa; oilarrak **eskortan** gelditu ziren, gaurko etaparen zain. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Lehengo etxe handia baneuka, garai bateko **eskorta** handi haiekin, ez nindukek ariko kexuka. Juan Garzia

Eskorta estu bat zeukan aurrean, hegaztiz eta mota guztietako aberez mukuru betea. Jose Morales

Han hartuko dute atseden **eskorta** ederretan, eta larre oparotan bazkatuko dira Israelgo mendietan. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Eskorta-hesi zartatuak han-hemen, euren pezo maskalduak erakutsiz. Juan Garzia

Zuen itsasaldea larratoki bihurtuko da, artzainen putzu- eta **eskorta**-leku. Elizen arteko biblia

· Bide ondoan zegoen ardi-**eskorta** batera heltzean, leize-zulo batean sartu zen Saul sabela hustutzera. Elizen arteko biblia

4 irud/hed

Mendebaldeko kristauek Normandia eta Danimarkako eskandinaviar kolonizatzaileak konbertitzeko balentria osatu zuten, eskandinaviar gerra-taldeak beren **eskortara** ekarriz beren jatorrizko gordelekuetan, baita Hungaria eta Poloniako barbaroak ere. Iñaki Mendiguren

Atetik urruti baina handik barrura sartzen zen guztia ikuspegian zuen toki batean eseri zen, buruan trumilka zebilzkion pentsamenduei **eskorta** jarri nahian. Felipe Juaristi

---

eskorta[2] ik **eskolta**.

---

eskortatxo *iz* eskorta txikia.

Bere garaian okindegi gisa erabili izan zen eta **eskortatxo** batera ematen zuen gela txiki batean bazen suil handi bat, erditik ebakia, eta lurrean sartua. Josu Zabaleta

Eskortatxo horretan aihendegi bat zuten, mahatsaihen sortak eta mahatsondo zaharretako egur pilak lehortzen egoten zirena. Josu Zabaleta

---

eskortzo *iz* figura bat irudikatze planoari perpendikularki edo zeharka irudikatzeko modua.

Urrundu egin da pixka bat, **eskortzo** egokiaren bila. Alberto Barandiaren

Lerroen norabideei erreparatzera mugatzen zen, zimenduetatik hasi eta gailurretaraino; eta elkar-ebakigunera zihoazen lerro zuzenen konbergentziari; eta gangak giltzarrietara bihurtzen ziren moduari; eta sabaiko habeen abaniko gisako **eskortzoari**, sala luzeetako urruneko bazterrean bat egiten zutela baitzirudien. Juan Garzia

Hantxe zegoen frau Gerda, balkoitik sartzen zen argiak **eskortzoan** ematen ziola. Anjel Lertxundi

Eskortzoan eta behetik gorako perspektiban zegoen gaztea, atzean zeru zabal ia bukaerarik gabea zuela. Anjel Lertxundi

Andreasek **eskortzoan** zeukan burua, eta bere hatz-mamiak baliatzen zituen, leun-leun eta ia batere presiorik egin gabe, Noraren masailak ferekatzeko. Anjel Lertxundi

Gerria ezin ikus, **eskortzo** ikuspegiarengatik, noski. Joxe Austin Arrieta

---

eskosiar ik **eskoziar**.

---

eskota *iz* moldura.

Sabaia irudi handiz margotua zuen, Jordaensen estilora; **eskotaren** angeluetan lau ebanjelariak, eta erdian Bibliatik hartutako irudi eta eszena batzuk ageri ziren. Josu Zabaleta

---

eskotatu *izond* eskotea duena.

Lisa zoragarri zegoen, gerruntze **eskotatua** zuen, eta eskumuturrak palkoaren belus gorriaren gainean paratzen zituen, eskularru zuri txikiegiek pixka bat estutzen bazizkioten ere. Karlos Zabala

Ehizaldiko otordu bat irudikatzen zuen, beltzez jantzitako gizonak eta andre **eskotatuak** basoko soilgune batean ageri ziren, haiek bezain handia zen pastel gorri bat jaten, belar horiaren gainean. Karlos Zabala

Soinean, ume mantal handi **eskotatu** bat zeukan, eta haren ertz xerrenda estu brodatutik haurraren beso maitagarriak ateratzen ziren, biluzik eta arrosak. Karlos Zabala

---

eskote 1 *iz* jantzi baten lepoladeko irekidura, bularraren edo sorbaldaren zati bat agerian uzten duena.

Nahi duzuna, baina badakizu, edo bernak erakutsi edo **eskotea** erakutsi. Sonia Gonzalez

Eskotea ixten zioten botoiak askatzen hasi zen eta soinekoa kentzen, geldi-geldi. Juan Martin Elexpuru

Orduan, bezeroak beste zerbaitez axola zitezen, neure borondatez utzi nuen **eskotea** lehertzen, eta nirea izan zen orduan iniziatiba. Joxan Elosegi

Galdera hori egitearekin batera, **eskoteko** azken botoiak askatu eta bularretakoa kendu zuen, sekulako errapeak utziz agerian. Jon Arretxe

Bezeroak ikusten nituen, nire **eskoteko** loreak jan nahian edo, hortzak nire lepoan sastatuz. Joxan Elosegi

Gona jaso zidan eta blusaren **eskotean** kateatu, makurtu eta nire ipurdia laztantzen hasi zen adore eutsiezinez. Juan Martin Elexpuru

Adrianok gonapetik gora eta **eskotetik** behera sartu zion eskua emazte hartu berriari. Aritz Gorrotxategi

Eskote baten ertzetik behera amiltzen zaigu begirada edo gona baten barrenetik gora irristatzen zaigu grina. Joxean Agirre

2 (izenondoekin)

Hiruki formako **eskote** beltzean agertzen zen jasmin zuriak, berriz, kontraste ederra sortzen zuen haren bular beltz irmoekin. Aritz Gorrotxategi

Ikusi nahi zituen neska aurpegi-politak, beren **eskote** zuri eta bizkar erreekin, delikatuki ibiltzen oin behatz-itsusi, gorrien gainean. Koro Navarro

Oso **eskote** oparoa zuen, eta are oparoagoak iruditu zitzaizkidan haren atsegingarriak -lorategiak eta baratze sekretuak-, nire begiek, beren abantailazko posiziotik, sumatzen zituztenak. Joan Mari Irigoien

Eskote limurtzaileak, ageriko bizkarraldeak, ezer gutxi ezkutatzen duten oihal arinak. Patxi Iturritegi

Gona motzak eta **eskote** luzeak, jantzi estuetan nabarmenduriko biribiltasun erakargarriak. Migel Angel Mintegi

Ohiko albornoza edo txabusina gabe, jantzi luze loreduna zeraman soinean, **eskote** zabalekoa, besoak has uzten, kulero argiak iradokitzen eta zorrorik gabeko titi-puntak nabarmentzen zizkiona. Aingeru Epaltza

Ez dut erretzen, eskerrik asko, erantzun zuen, eta begiak apaldu zituen, beraietan jaso zuelarik **eskote** pikoa zuen blusaren irudia, zer koloretakoa zen ez zuen esaten jakingo, hain zegoen asaldaturik. Jon Alonso

Blusa **eskote** handiduna, gona estu ñimiñoa eta zapata takoidunak. Aingeru Epaltza

Luxuzko bainujantzi bat, oso **eskote** handikoa, zegoen paketearen barruan. Joxan Elosegi

Egia da laneko jantzia, klinika estetikoetan ohi diren moduko mantal zuri serioa, arras ongi zegokidala, gorputzean estu-estu sartua eta bizkarra eta papoa ageri xamarrean uzten zituen **eskote** sakon batez hornitua. Joxan Elosegi

Blusaren **eskote** tolesdunak osatutako bolizko V-tik lepoa sortzen zen. Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetan)

"Iñ zirri, zirri iñ" esaten zidaten mutilek tarteka, soinekoen azpildurak edo **eskote** ertzak bilatzeko keinu gisakoak eginez, eta neskatxek irrifar konplize batekin ezezka bezala erakusten zuten baiezko libido gordea. Patziku Perurena

---

eskotedun *izond* eskotea duena.

-Buelta txikia egiteko asmoa geneukan -esan zuen **eskotedunak**, Vanessa zeritzonak- eta ez dugu diru askorik atera. Jon Arretxe

Ilehoria eta kardabera berehala oheratu ziren, baina **eskotedunak** ez zeukan presa handirik, antza, eta, hozkailutik garagardo botila eta marmelada potoa hartu ondoren, egongelako besaulkian jesarri zen, ni aurrean ninduela. Jon Arretxe

---

eskotila *(orobat **eskotilla** g.er.)* *iz* itsasontzi bateko kubertako irekidura.

-Ireki ezak **eskotila** hori! Koldo Izagirre

Marinelek sotoko **eskotilak** irekitzen ziharduten. Lopez de Arana

Eskotilak zabaldu zituzten, zubi aurreko kanoia noratu ziguten. Koldo Izagirre

Ez duk sutunpa handirik behar, itsaspekoa ahula duk azalean, eta hura zegoen moduan, izardunak zubian, **eskotilak** zabal, lotua baino lotuago. Koldo Izagirre

Eskotilako kristala apurtzen saiatu da ukalondoarekin. Harkaitz Cano

Artilleroek kanoia finkatu eta **eskotilan** behera egin zuten, serbiola gelditu zen bakarrik zubian, prismatikoak begietan. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Batzuetan irakurgaia eramaten dut labanderiara, baina beste batzuetan **eskotilatik** begira geratzen naiz, Julio Verneren istorio bateko protagonista banintz bezala. Harkaitz Cano

---

eskotilla ik **eskotila**.

---

eskotopiko *izond* gaueko ikuspena.

Ikuspen **eskotopikoa** oso gutxitan gertatzen da irudiei dagokienean, eta hala nahita gertatzen da gertatzen denean ere: "instalazio" artistiko batzuetan, esate baterako. Josu Zabaleta

Ikuspen **eskotopikoa** : "gaueko" ikuspena da (kontuan harturik gauez ere, argiztapen bizi batek "eguneko" ikuspena erabiltzera behartu dezakeela). Josu Zabaleta

---

eskoziar *(orobat **eskosiar** g.er.)* **1** *izond* Eskoziakoa, Eskoziari dagokiona; Eskoziako biztanlea.

Charles Kennedy **eskoziarrak** esan zuen espero zuela bere ordezkoa alderdiko kideek «zuzenean hautatzeko» aukera izatea. Berria - Mundua

Marika polones pulposa, azpiak erraz irekitzen zituen Klozie **eskoziarra** eta apainketarako molde arras bereziekiko Monikaren konpainian, hau amerikarra zen jatorriz eta larrua diru eta errauts trukean saltzen zuen. Itxaro Borda

Robert Burns (1756-1796) idazle **eskoziarraren** "To a Mouse" poematik ateratako zatia. Mirentxu Larrañaga

George Galloway diputatu **eskoziarrak** Erresuma Batuko Alderdi Laborista utzi zuen. Berria - Mundua

Tarifa Edam Smith sinadura Adam Smith (1723-90) ekonomialari eta filosofo **eskoziarraren** gainean egindako hitz jokoa da. Xabier Olarra

Robert Burns poeta **eskoziarraren** jaiotza-eguna oroitarazteko ospatzen den festa-eguna, urtarrilaren 25a. Mirentxu Larrañaga

Gidari **eskoziarrak** ez du aurten Munduko Rally Txapelketan parte hartuko, eta basamortuko rallyan sartu da lehen aldiz. Berria - Kirola

Neska erromantiko **eskoziar** batek agintzen die bere tutoreei ez dela ezkonduko izpi berdea ikusi aurretik. Iñaki Iñurrieta

Frantziako erregeren guardien konpainietako mertzenario suitzar edo **eskoziarren** artean ere ez dut halako diziplinarik ezagutu. Aingeru Epaltza

Ahotsera zetorkion azentu **eskoziarraren** aztarnagatik. Anton Garikano

Amatxok Hearn´s-en erositako jantzi **eskoziarraren** sorbaldakoan brotxe moduko zilarrezko kardu bat erakusten zuen. Lopez de Arana

Gona **eskoziarra** eta mendiko bota gorri distiratsu batzuk ditu soinean, eta Rita Hayworthen estiloko fular bat ere bai lepo inguruan kiribilduta. Harkaitz Cano

Bertan egoten zen Miranda, sofan etzanik, ur beroaren poltsarekin manta **eskoziar** batean bilduta, oso hozbera zelako, eta oso nagia. Fernando Rey

Jaka beltza, ezker besoan partxe **eskoziarra** josirik zuena. Harkaitz Cano

Erruz edan zuen bezpera gauean, eta Martin andrearenean edan zituen beste lau whiski **eskoziarrek** areagotu egin zioten zuen nahaste-borrastea. Mirentxu Larrañaga

Hemeretzigarren mendeko Afrikan, San Paulo, David Livingstone **eskoziar** mediku misiolariaren mozorropean, berri ona predikatzen, gaixoak sendatzen eta aintzira eta ur-jauziak aurkitzen ari zen bitartean, Islama ere mugitzen ari zen. Iñaki Mendiguren

Izan ere, lanaren banaketan ipini zuen **eskoziar** irakasleak benetako aurrerapen ekonomikoaren iturburua bere Nazioen aberastasuna liburuan. Koro Navarro

Hartu zuen ba **eskoziar** oihalezko partxea zuen jaka hura, hartu bazuen. Harkaitz Cano

Mota askotako zakurrek egin diote haginka: german shepherdek, **eskoziarrek**, ardi-zakurrek, [...]. Gotzon Garate

Neska erromantiko **eskoziar** batek agintzen die bere tutoreei ez dela ezkonduko izpi berdea ikusi aurretik. Iñaki Iñurrieta

Eskoziarra da izatez baina Finlandian bizi da. Berria - Kultura

Gainerako bost lagunak ere **eskoziarrak** ziren. Felipe Juaristi

Denetatik deigarriena, agian, Bobby izeneko zakur **eskoziar** batena da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Odola irlandar eta **eskoziar**, bihotza ingeles eta euskaldun Berria - Kultura

2 (izenlagun gisa)

Pinta eta erdi **eskoziar** whiski eta bi botila ardo beltz erosi nituen neuretzat. Oskar Arana

Hartu zuen ba **eskoziar** oihalezko partxea zuen jaka hura, hartu bazuen. Harkaitz Cano

Eskoziar ardi-zakurra. Gotzon Garate

Hartu zuen ba **eskoziar** oihalezko partxea zuen jaka hura, hartu bazuen. Harkaitz Cano

3 (izen gisa)

Eskoziarra jokalari tinkoa da, eta Aussel, bizia eta irudimentsua; elkarrekin ongi moldatzeko biko egokia. Berria - Kirola

Hala nola katalanak, galiziarrak, **eskoziarrak** eta galestarrak. Berria - Euskal Herria

Oihu haiek entzunda, **eskoziarrak** konturatu ziren etsaiak han bertan zituztela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Talde lanean oinarritu zuten garaipena **eskoziarrek**. Berria - Kirola

Hauxe da partida bitxia **Eskoziarren** kontra jokatua eta azkenean irabazi dutena Frantsesek 16 eta 9. Herria

Sututa, berriro borrokari ekin zion itsu-itsuan, **eskoziarrak** eta erregezaleak zanpatu zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Enpirismo klasikoa ere hankaz gora uzten du **eskoziarrak**, zientzia enpirikoentzat funtsezkoa zen kausa-efektu erlazioaren oinarria ez dela razionala argibidearekin.

Askoren artean

Etxean aritu ziren Celticen kontra, eta 2-0 atera zuten aurrera norgehiagoka, euren taldea ikustera joandako milaka **eskoziar** sutsuren aurrean. Berria - Kirola

Berrogei **eskoziar** mozkortzeko adina whisky. Aingeru Epaltza

-Irlandar bat eta **eskoziar** bat kalean behera zihoazen eta irlandarrak esan zion **eskoziarrari** : [...]. eta **eskoziarrak** esan zuen: Mike... Lopez de Arana

Ohar bera egin genezake Britainia Handiko galestarrentzat eta Gainaldeetako **eskoziarrentzat** . Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskoziar bat (6); **eskoziar oihalezko** (3); **eta eskoziar** (3)

---

eskrementu *iz* iraizkina; gorotza.

kanal hura, batzuetan, lohitu egiten zen, zeren eta lohikeria baita **eskrementuen** eta bertze mila hondarren emaitza, eta, haien garbitzeko, errotako urtegiko ura husten zen noizik behin, uraren lasterrak haiek guztiak jauregitik urrun zitzan. Joan Mari Irigoien

Kanaleko urak, halatan, **eskrementu** haiek guztiak errekaraino arrasta eta eraman zitzan, jauregitik urrun. Joan Mari Irigoien

Eskuz jaso eta eskuan eramanen zuela dukeak bere **eskrementuen** fruitua, zeren, soberakinak ere, zilarrezkoak edo urrezkoak direnean, ez baitira izan ohi soberako. Joan Mari Irigoien

---

eskrezentzia *iz* landare edo animalia baten azelean sortzen den handitua.

Anakronismo larria izango litzatekeela liburu horiek beste aurrekoen **eskrezentzia** huts eta apenas justifikatu bezala hartzea. Pentsatu izan baita gordailu horretara iristeko nahikoa zela interpretazioaren **eskrezentziak** ezabatzea eta, historia, filologia eta arkeologia modernoen laguntzarekin, berriro jatorriko iturrietara itzultzea. Santiago Iruretagoiena

---

eskriba *iz* hebrearren artean, legea interpretatzen zuen doktorea.

Orriaren alde bat erabiltzen zuten **eskribek** , eta kanaberatxo puntadun bat erabiltzen zuten idazteko: hegatsa. Jon Muñoz

Hantxe destolestu zuen, hain zuzen, **eskriba** batek Epikuroren tratatua kopiatua zueneko bilkaria. Juan Garzia

Ruche jaunak ez zuen aipatu Babiloniar taulatxo batean [...] **eskriba** batek zenbaki osoen hamabost bat hirukote idatzi zituela, haietariko biren karratuaren batura hirugarrenaren karratuaren berdina zutenak, inondik ere. Jon Muñoz

Adibide bat aipatuko dugu, oso ezaguna: faraoien garaiko Egiptoko artea, irudi jakin bat eskema tipikoak ahalik eta modu literalenean irudikatzen duten irudi partzialen konbinazio multzoa baino ez dena (**eskriba** eseria, **eskriba** kokoriko jarria, jainkoak, faraoiaren irudia, eta abar); irudi horiek guztiak, gainera, beren aldetik, konbentzioz daude lotuta zein beren erreferente errealarekin. Josu Zabaleta

Jesus tenpluan dago, eta **eskriba** eta farisauek andre bat dakarkiote adulterioan erori dena. Herria

Jesusen drama beti hura baitzen, Lege Zaharreko doktore eta **eskriba** eta lebitarrekin kontrajarrian bizi beharra, legeko hitzen gainetik espiritua aldarrikatzen zuelako Jesusek. Herria

Hogeita hamar **eskribak** transkribatuko ditek hamabi aldiz. Juan Garzia

Eskribek eskuizkribuok kontu handiz aztertu eta berriz kopiatu ondoren, beren jabeei itzuliko zaizkie. Jon Muñoz

Eskribek isilpeko zina egiten dute gauzak kendu, tartekatu, aldatzeko. Juan Garzia

---

eskribano *iz* eskribaua.

Hala gertatu zaie askori eta baita Faberio **eskribanoari** ere, zeinak Aventinon nahi zuenez dotore bukatutako etxe bat eduki, peristiloetako pareta guztiak minioz pintatu omen zituen, eta hogeita hamar egunen buruan kolore ezberdin eta itsusia hartu omen zioten. Santiago Iruretagoiena

---

eskribatu, eskriba(tu), eskribatzen du *ad* idatzi.

Instalazio proiektua asmatzean, teknikariaren laguntzarekin paperean **eskribatua** eta errealitatezkoa ez dituk berdin joan.Bulegoan sarturik, alegia faktura batzuen prestatzen ari, gutun bat **eskribatu** nion nagusiari, erranez hilabetea barne ene lanpostua utziko nuela. Daniel Landart

---

eskribatzaile *iz* idazlea.

Bukaera Fisiologoaren **eskribatzaile** anonimoaren esku utziko bagenu -segitzen zuen Leandrok jario eta jario-, hark neskaren bidetik harilkatuko likek, seguruenera, kontakizunaren erematea. Anjel Lertxundi

Eskribatzaileak ez dio gizartearenganako zor zibikoari uko egin behar. Berria - Kultura

Literaturan bide asko dagoela eta idazleak idatzi gabe uzten dituen gauzak, maiz, idatzitakoak baino hobeak direla eta **eskribatzaileak** , etsi-etsian, halakoen bila jardun behar duela. Berria - Kultura

---

eskribau 1 *iz* eskrituren fede ematen duen funtzionarioa. ik **eskribano**.

Idazleak bere burua aurkezten du aurrenik: Ahmès, **eskribaua** . Jon Muñoz

Etxezain eta **eskribau** : Jatorrizkoak "camerarii et cancellarii". Askoren artean

Honela ba, zoazte **eskribauaren** bila, apaizak nire aitortza entzun bitartean. Patxi Ezkiaga

Kanpaniako Joan subdiakono eta **eskribauak** idatzia. Askoren artean

Eskribauak bidaltzen zituen Ramsesek azaleraren galera haiek neurtzeko, hartara zerga ere proportzio berean gutxitu zedin. Jon Muñoz

Ez zagok izen horretako inor Armadan -arduraz esan zuen Okendoren alboan zen batek, **eskribaua** , itxuraz, pergamu lar haztatu batzuetan begiratu ostean. Edorta Jimenez

Gela argitsu batera eraman zuten, nonahi ikusi zituen han **eskribauak** , idazmahai bernizatuen aurrean eseririk, idazlumekin zarata ateratzen eta burua alde batera okerturik. Jose Morales

Zein premiazkoa zen, etxaldea ondo gobernatzeko, idazkaritzak, bulegoak eta are batzordeak ere eratzea, horrela lapurretak eragozten baitziren eta gauza guztien berri zehatza jakiten baitzen, eta **eskribauek** , administratzaileek eta kontulariek unibertsitateko ikasketak izan behar zituztela gutxienez. Jose Morales

Ez dago bide txarreko dirurik onartzen duenik: bulegoburu guztiak ezin zintzoagoak eta zuzenagoak dira; idazkariak eta **eskribauak** soilik dira zitalak. Jose Morales

Orain, noski, eroste-agiria egin beharko dugu **eskribauarenean** , tratua behar bezala burutze aldera. Jose Morales

Eskribauen kastakoak baitziren haiek, edo apaizen kastakoak, bestela, eta beren esku baitzeukaten ezagutzaren eta kalkuluaren monopolioa. Jon Muñoz

Mesopotamiako hiriburuan igaro zituen hamabi urteetan, babiloniar **eskribauen** eta aztien jakintza neurrigabea bereganatu, eta jakinduriaz eta ezagueraz gainezka itzuli zen

Samosera. Jon Muñoz

Orain ezin naiz berriro behetik hasi, bulego batean **eskribau**. Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Batzuetan, idazkariak **eskribau** hutsak ziren, eta Umbriako italieratik latinera itzultzen zuten, idazkera neurri batean behintzat zainduz. Askoren artean

Zuek, *Ánimas* ontzira joango zarete zuek biok -neuri eta San Salvador ontziko **eskribau** Igeldokoari begiratuz esan zuen-. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kaligrafiako lantegi zabaletan, **eskribau**-oste handi bat ari zen buru-belarri lanean, etenaldirik gabe. Jon Muñoz

Istorio ile-lazgarri baten inguruko esanak ondo jasotzea eta ordenatzea izan dut meritu guztia, inolako meriturik balu, behintzat, hain lankide goratsuen artean betetzea egokitu zaidan **eskribau**-lan apalak. Anjel Lertxundi

Eskribau-lanetan *con amore* aritzen ziren funtzionario bakan horietako bat zen. Jose Morales

Basurtokoak **eskribau** zereginetan izan ninduen denboran pergamu haiek ikusteko aukera eduki nuen. Edorta Jimenez

Ardura zion bakarra nire **eskribau** antzea zen. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskribau eta (4); **eskribauen egia** (3); **eta eskribau** (4); **eta eskribauak** (3)

---

eskribidore *iz adkor* eskribitzailea.

Eskribidore bat alokatu behar izan genuen eta hari ordaindu paskina idazteko. Harkaitz Cano

Hitz bakoitzeko hainbesteko bat kobratzen zuen **eskribidore** putakume hark. Harkaitz Cano

---

eskribidu ik **eskribitu**.

---

eskribittu ik **eskribitu**.

---

eskribitu, eskribi(tu), eskribitzen *(orobat **eskribidu** g.er. eta **eskribittu** g.er.)* du *ad* idatzi.

Baina ez dot uste olerkirik **eskribitzen** ebanik. Lutxo Egia

Beharbada, zakurra zen eleberriak **eskribitzen** zizkiona. Harkaitz Cano

Ezkerrez **eskribitu** baitit, bere burua ez konprometitzeko. Patziku Perurena

Ahizpari **eskribituko** diot. Juan Garzia

Eskribitu bear zendula, **eskribitu** bear zendula, ta batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina ez da zalantzarik latinez **eskribitutako** obrak zirela haren zeregin nagusia edo, hobeto esateko, latina bera zela haren neke gehienen xedea. Berria - Kultura

Hearstek egunkari bat ba omen zeraman // bere ideiak oro **eskribitzeko** han. Xabier Olarra

---

eskrima *iz* ezpata, sablea edo kidekoak erabiltzeko artea edo kirola.

Eskriman erabili ohi diren aurpegi-babesen antzeko sare zurrun gisako bat, baina aurpegiari estu itsatsia. Imanol Zurutuza

Bere bidaietarik itzultzen zen bakoitzean, Mattinengatik galdetuko zuen lehenik eta Matinengatik galdetuko zuen ondotik, harekin **eskriman** edo ehizan ibiltzeko desiros. Joan Mari Irigoien

Goizero gerritik gora biluztu, bendatu, kareta jantzi eta ordubete ematen zuten **eskriman** Akademiako gimnasioan. Xabier Olarra

-Prime ala tierce? -galdetu zuen Elly-k, **eskrimako** jakintsu baten aurpegia jarrita. Anton Garikano

Mattinek Villagrandeko dukearen etxerat egin baitzuen, dukeak berak gonbidaturik, Madrilgo dantza eta **eskrima** eskolak eta gorterako joan-jinak ikasbide egokiagoak izan zitezkeelakoan, Urbiainen irakasten zitzaizkionak baino. Joan Mari Irigoien

---

eskritore *iz* idazlea.

-Hi **eskritore**, ba al dakik non gauden? Harkaitz Cano

-Aber, **eskritorea**. Harkaitz Cano

Jaime Sobrino Garziandia, hain zuzen, orduko Euskal Herriko **eskritorerik eskritoreena**, Josebaren uste apalean. Iban Zaldua

Ordu ezkero, ezinbestean, idazten jarraitu dut, eta, inork ez badaki ere, nire **eskritore**-ahalegin publiko zein pribatuen ondorioez josita daude Euskal Herriko egunkari guztietako "gertaeren" atalak. Iban Zaldua

---

eskritura **1** *iz* idaztea; idazteko teknika edo artea.

Idazlearen kezka nagusia **eskritura** izan behar dela esaten du eta euskara batuak euskalki guztien musikaltasuna gorde dezala eskatzen. Ana Urkiza

Baina gero **eskritura** lana, zaila da. Ana Urkiza

Nik argi daukat **eskrituran** bat garela, gizonezkoak eta emakumezkoak. Ana Urkiza

Bi ziren oratoria eta **eskritura** onaren ezaugarriak: neurria eta distira, distira eta neurria. Joan Mari Irigoien

Baina gero **eskritura** lana, zaila da. Ana Urkiza

2 dokumentua, eskuarki notario batek izenpetzen duena.

Haren lurren **eskritura** guztiak ozta-ozta dituk sartzen kutxa honetan. Juan Garzia

Gero, traje urdinez jantzita, kalera doa, bere bulegora; herentzia, **eskriturak** eta notaritzako beste dokumentu mami handikoak izenpetzera, ex profeso. Josetxo Azkona

Gutunontzian ezer jartzen ez bazuen ere, notarioarenean **eskriturak** eta gainerako patrifilioak egiten ibili ginen garaian esku artean izan bainituen haren agiriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Beti atzeratzen eta atzeratzen, gauza asko zituela egiteko, tartean amonaren etxeko **eskriturei** buruzko ez dakit zer notarioarenean. Anjel Lertxundi

Alkimiako harri filosofalarekin aberasteko konfiantza askorik ez zuen izango, dirudienez, notario lanetan iruzurraz baliatu baitzen -besteren **eskriturak** bere faboretan jarriz-legez kanpo dirua eskuratzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baserriko **eskrituretan** bere ber-berraitonaren izena ageri dela nabarmendu du, «gizaldietako» historia daukala Sestea Berrik. Berria - Euskal Herria

Horrez gain, erosleari bermatu egin behar zaio etxeak **eskrituretan** ageri diren metro koadro kopurua duela: %5 metro gutxiago edukiz gero, erosleak eskubidea du prezio merkeagoa eskatzeko. Berria - Harian

3 ***Eskritura*** Biblia.

Honetara, hauxe dio **Eskriturak** : [...]. Xabier Kintana

Nola ulertzen duk hik **Eskritura** ? Juan Garzia

Horregatik esan zen **"Eskritura** giza mintzairaren arabera adierazten dela". Xabier Kintana

Batzuek pentsatzen zuten -sèlem-ek, hebreeraz gauza baten itxura eta jasa esan nahi duelako, horrek aldean Jainkoaren gorpuztasuna zekarrela, **Eskrituran** esanikoaren arabera: [...]. Xabier Kintana

Juduen ikuspegitik, Kristau Eliza juduen fedea ukatzen zuen sekta bat zen, **Eskrituraren** kanonari baimenik gabe jarritako eranskinean oinarrituz desbideratu eta zorigaiztoko galilear fariseuaren irakaspenaren aurka bekatu egina. Iñaki Mendiguren

Eskrituraren exegesia, bai juduena eta bai kristauena ere, neurri handiz, testuak hitzez hitz hartu nahi izateak biziatu du. profetizatzen zuen Federiko Bizargorri enperadorearen itxurapean etorria zela Antikristoa, haren hondamendia burutua zela, eta aurki altxatuko zirela Zazpi Ordenak haren ondotik, **Eskrituraren** interpretazioaren arabera. Xabier Kintana

Doktore eskolastikoek, modernoagoak izanik, ez dute onura bakarrik hartzen **Eskritura** Sakratuaren zinezko adierazteaz eta doktore positiboez eta santuez, baizik direlarik jainko-ahalmenez argituak eta garbituak, gure Eliza ama santaren kontzilioez, kanonez eta konztituzioez ere baliatzen dira. Patxi Altuna

Kristautasunak, nahiz eta inoiz ez zuen gaitzetsi judu- **Eskrituren** agintea [...], bere konkista errazak, juduen ikuspegitik, bi printzipio judaiko nagusiei, Hamar Aginduetako lehenengoari eta bigarrenari, alegia: monoteismoari eta anikonismoari ("irudirik" ez) traizio eginez zertu zituen. Iñaki Mendiguren

4 (pluralean)

Errebelazioa besteren lekukotasunean oinarritzen da, **Eskriturak** Jainkoaren hitza direla esaten diguten lekukoak aspaldi hilak dira. Xabier Olarra

Arratsaldean goiz, otordu isil baten ondoren, Gwilym **Eskriturak** irakurtzen ari zela, edo neskentzako himnoak idazten, edo bere kaperan lo, Annie ogia egiten ari zela, eta ni egurrezko txistu bat zizelatzen ukuiluaren gaineko mandioan, patioan sartu zen berriz autoa. Koro Navarro

Eskriturak interpretatzeko libertatea. Joan Mari Irigoien

-Bai, mugi daiteke -tematu zen aita jesuita-, sinesteak, **Eskrituren** arabera, mendiak mugi ditzakeenez gero. Joan Mari Irigoien

Froga gisa eskaintzen ditu **Eskrituretan** adierazitako profeziak konplitu izana, bai Kristori buruzkoak, bai Elizari buruzkoak, gurutziltzatuaren federa munduaren konbertsio ezohikoa eta hainbat martiriren testigantza. Imanol Unzurrunzaga

Horrela esaten da **Eskrituretan** "Apostoluak Biltzarra Nagusitik pozik atera ziren, Jainkoak Jesukristogatik sofritzeko duin aurkitu zituelako". Joan Mari Lekuona

Sionistak beren burua gizarte-giro jentil batekin parekatzen ari ziren; eta beren **Eskrituretan** inspiratzen ari ziren neurrian, inspirazioa ez zetorkien ez Legetik, ez Profetengandik, baizik eta Irteera eta Josue liburuetako narrazioetatik. Iñaki Mendiguren

Ebangelioetan eta **eskritura** sakratuetan oinarritu da, eta latinez eta arameoz filmatu du, Jim Caviezel aktore protagonistarekin. Berria - Kultura

5 (hitz elkartuetan)

Ez datoz bat berek "esentziazkoak" deitzen dituzten atributu horiei buruz, hau da, berorien kopuruaz, zein bere **Eskritura** -testuari darraiola. Xabier Kintana

Bere "hebreera zaharkituaren" aldaeran judu- **eskritura** eta liturgiaren baliabide bihurtu zen Iñaki Mendiguren

6 ***Eskritura santu*** *(orobat* ***saindu****)*

Jeronimo, berriz, **Eskritura Santuak** ikertzen ari zen; berau dugu filosofo eta teologoak idatzitako gutunen hartzailerik ezagunena. Imanol Unzurrunzaga

Kristau doktrina *(De doctrina christiana)* Bibliari buruz ari da, **Eskritura Santuen** interpretazioa aztertzen du. Imanol Unzurrunzaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dio eskriturak (3); **eskritura gizakien** (3); **eskritura gizakien mintzairaren** (3); **eskritura sainduak** (3); **eskritura sainduen** (4); **eskritura sainduen irakurketa** (3); **eskritura sainduetan** (3); **eskritura santuak** (6); **eskritura santuan** (3); **eskritura santuek** (4); **eskritura santuen** (6); **eta eskritura** (5)

---

eskrituratu, eskritura(tu), eskrituratzen du *ad* kontratu, erosketa edo kidekoren batez mintzatuz, hura eskritura publiko baten bidez agerrarazi edo ohartarazi.

Nola **eskrituratuko** duzu/duzue pisu berria? Jon Alonso

---

eskriturista *iz* Eskrituran aditua.

Eskrituristen artean pasarte honek bi interpretazio ditu. Xabier Kintana

Frantzisko idazkariez baliatu zen, noski, eta Lehen Erregela honetan, gainera, Spirako anai Zesareo **eskrituristak** lagundu zion kapitulu bakoitza oinarri biblikoz janzten. Askoren artean

---

eskrituristika *iz* eskrituristena, eskrituristei dagokiena.

Horrez, gainera, jakina, **eskrituristikan** ere are maila jasoagoa eduki beharko lukete. Xabier Kintana

---

eskrofula *iz* eritasun egoera, ganglio linfatikoen hanturak ezaugarritzen duena, edo gaixotasun kutsagarrietarako joera dakarrena.

Masturbazioari buruz, direnak eta ez direnak esaten zuten; hainbat gaitz sortzen zituela, itsu gera zintezkeela, hil zintezkeela, edo bizkarrezur muina biguntzen zela, edo tisia edo **eskrofula** sortzen zela. Luis Elberdin

Morrosko galanta zen, **eskrofulaz** josia, eskuin begia gorago zuena ezkerra baino. Juan Garzia

Badago beste ur hotz mota bat nitroa duena [...] edaten denean barrua garbitzen duena eta hesteetatik pasatzen denean **eskrofula** -tumoreak sendatzen dituena. Santiago Iruretagoiena

---

eskroto *iz* testikuluak estaltzen dituen azalak osatzen duen poltsa modukoa.

Eskrotoaren erdia, hori eta ubel, hazita du, baloi baten moduan puztuta; beste erdia odol idorrez eta zikinez itsatsitako masa bat da. Oskar Arana

Bev Shaw-k zatar xukagarri batekin ukitzen du **eskrotoa** . Oskar Arana

Barrabilen poltsa - **eskrotoa** - emakumearen kanpoko ezpainak baino ez da. Luis Elberdin

Barrabilak eta obarioak parekoak dira; enbrioiarengan jatorri bera dute eta leku berean osatzen dira, eta leku horretan egoten dira, harik eta jaiotzerako orduan barrabilak **eskrotora** jaisten diren arte. Luis Elberdin

---

eskrupulo ik **eskrupulu**.

---

eskrupuloso *izond* eskrupuluz betea.

Langile **eskrupulosoa** da, zatar honetan bildu eta katabutean ipintzen ditu pertsonalki gorpuzkinak. Koldo Izagirre

Zuzentzaile bikaina izango litzateke, hain **eskrupulosoa** izanik. Jon Alonso

Aldizkarian bazen komiki sakrilego bat, apaiz perbertitu bat azaltzen zuena eta jende guztiari Leunda bera gogorarazi ziona, bere itxura garbi-aratz, zaindu, ia **eskrupulosoagatik**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskrupulosoki *adlag* era eskrupulosoan.

Ez litzateke ezinezkoa izango gauzak nola gertatu ziren zehatz-mehatz adieraztea, kronologia deitzen den hori **eskrupulosoki** errespetatuz, saihesbideak ekidinez, oroimenak eskaintzen dizkizun hutsuneak eta babesak alde batera utziz; ez litzateke, ez, batere zaila izango, eta agian horrela jokatu beharko litzateke, erarik zuhurrenean ez ezik ortodoxoenean ere. Karlos Linazasoro

---

eskrupulotsu *izond* eskrupulosoa.

Bere aita izateko ere nahikoa adina zeukan, botanikoa, alarguna, xaboi usainduna, oso **eskrupulotsu** eta garbia. Anton Garikano

Oso txikia da edonolako kontribuzio sendoa egiten duten gizonen kopurua, esan zuen udareondoaren alboan gelditu, txukun asko, zehaztasun **eskrupulotsuz**, fintasun osoko epailea. Anton Garikano

---

eskrupulu *(orobat **eskrupulo**)* **1** *iz* zerbaiten zilegitasunaren, ontasunaren edo zuzentasunaren inguruko kezka.

Iruñera helduta eta karrikaren buruan ageri ziren kanpandorre bien tankera tamalgarria ikusirik, **eskrupulu** batek hartu ninduen, eta portikora jo nuen. Koldo Izagirre

Protagonista Chili Palmer dugu, gaztetan erdi mafioso ibili eta gero zine-zuzendari bihurtua, **eskrupulu** gutxi baina xarma handiko tipoa. Berria - Kultura

Hogei lagun Ondarretako kartzelatik atera eta kamino bazter batean garbitzeko horrelako **eskrupuluak** nola izan zitzakeen. Inazio Mujika Iraola

Eskrupuluak galtzen gaitu. Anjel Lertxundi

Eskrupuluak baztertu behar zituela, Alemaniak ez zuela aurrera egingo garai bateko zintzotasun ustelduarekin? Errektore jaunari dagokionez, berriz, bertatik onetsi zituen Héracliusen **eskrupuloak**. Anjel Lertxundi

Erorketa-bidezko urkatze honek bazituen abantaila franko, borreroaren **eskrupuluak** aldentzeaz gain erorketak lepahezurra hautsi eta lipar batean akabatzen baitzituen gaizkileak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hain da handia, oro har, zientziaren igartze-ahalmenean dugun ustea, ezen azti eta ezkutu-ikusleek ez baitute **eskrupulurik** "zientifiko"tzat saltzeko beren igarpenak. Juan Garzia

Davidek ez baitzuen inolako **eskrupulurik** amorantea zakur makilatua baino okerrago tratatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nik esanen nuke eskerrak eman behar zizkiola pentsatu zuela baina **eskrupuluren** batek atzeratu zuela, halakorik egiteko eskubiderik ez zeukalakoan. Koldo Izagirre

Horrenbestez, aldatzen ez denari ez ezik, aldatu ezin denari deritzo **eskrupulurik** gabe eta egiaz Izatasuna. Imanol Unzurrunzaga

Eraldakuntza genetikoa, egundaino, negozioaren eskutik sartu da, **eskrupulurik** gabe, pazientziarik gabe, isiltasun, sekretu- eta misterio-giro ilunean. Edorta Agirre

Zurrutadatxo bat egiten zion edari bakoitzari, gupidarik gabe papurtzen zuen ogia, eta inguru guztia zikintzen zuen piparen errautsaz, inolako **eskrupulorik** gabe. Jose Morales

Ezin baita alderatu Irakeko ume pobreei izarak eta jana ematen diharduen neska eta ume horien sufrimendua **eskrupulu** barik areagotzen ari dena, etekin politiko edo ekonomikoa ateratzeko. Berria - Mundua

Dute inolako lotsarik informazioa batere **eskrupulurik** gabe editorializatzeko. Berria - Euskal Herria

Badirudi Fiatek **eskrupulurik** gabeko pertsona bat aurkitu duela lan zikina egiteko. Berria - Ekonomia

Piraten erasoa erabateko sorpresa izan zen: Kako-okerrek, **eskrupulurik** gabeko horrek, arauak errespetatu gabe jokatu zuen. Julen Gabiria

Ala utzi egiten da, ala egin egiten da politika: ez dago **eskrupuluekin** ibiltzerik. Joxe Azurmendi

Hala abiatu nintzen egun batean Salamancarat, kontzientzia, beti bezala, **eskrupuluaren** pipiak jana eta zuhirindua. Joan Mari Irigoien

Erretratu hauetan, batez ere heziketa moralerako eginak izanagatik ere eta bertan zehaztasuna **eskrupuluaren** muturreraino eramana zegoen arren, artearekiko kezka ez zegoen baztertu rik. Monika Etxebarria

Herstura hark bulkatzen ninduen bekatu ez zena ere bekatutzat hartzerat, eta hala ibiltzen nintzen **eskrupuluen** ur nahasietan erdi itorik. Joan Mari Irigoien

Barkatzen badiote, fribolitatea eta disimulurik gabeko **eskrupulurik** eza ere, aurrerantzean politiko idealaren soslai estandarrari erantsi beharreko ezaugarriak izango direla ulertu beharko dugu. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eskrupulu handiak izan zituen bere soldaduei lagun kristauen odola isurtzen uzteko. Iñaki Mendiguren

Laster asko ikasi nuen hitz dontsuaren esanahia, eta handik aurrera **eskrupulu** handienaz hasi nintzen hartzen neurriak, batez ere praka-gurutzekoak. Anjel Lertxundi

Ez zen osasuntsua **eskrupulu** burgesen mende bizitzea. Anjel Lertxundi

Egutegi eta aroetatik pisu eta neurrietara eta dirura igarotzen garenean, gizarte-erabileren arlo honetan adimen arrazionalizatzailea aske mugitzen da, erlijiozko **eskrupuluen** zentsurapean egon gabe. Iñaki Mendiguren

Doktrinak eta teoriak astindu ziren, benazko **eskrupuluak** agertu ziren, baita arrazoi sasikoak estaltzeko ideologiaz maskaraturiko beste batzuk ere, arrazoi praktikoaren agerpena ere ez zen falta izan. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Enpresa horien hipokrisia eta **eskrupulu** falta salatzeko. Txema Ramirez de la Piscina

Kontsumitzailearengan (adin txikikoaren baitan, bereziki) inolako **eskrupulu** edo erruduntasun-konplexurik ez sortzeko, sistemak begien bistatik apartatuko digu jan beharrekoa, hori jateari uko egiteak galera eskerga ekarriko lioke-eta. Edorta Agirre

4 ***eskrupulu(rik) gabe*** *izond* eskrupulurik ez duena.

Torturatzaile **eskrupulurik gabea** omen: atxilotuak zertan zebilen aitortzen bazuen, aitortu zuelako; aitortzen ez bazuen, berriz, aitor zezan. Anjel Lertxundi

Gure jendarte hartan ez zen falta ez faltsariorik ez kontzientzia gabeko gizonik, baina hura, denetan zinikoena eta **eskrupulu gabeena** zen. Matías Múgica

Ordurako politika autoritario **eskrupulurik gabeena** abiatua eta munduaren bistan zegoen. Joxe Azurmendi

5 ***eskrupulu gabezia*** *(orobat **eskrupulugabezia**)* eskrupulurik eza.

Bushi **eskrupulu gabezia** barkatuko dioten ala ez, hori da ikusteko dagoena. Berria - Mundua

Inozentzio IV.arekin (K.o. 1243-54), honek berea bezain **eskrupulugabezia** setatia zuen Stupor Mundi handiarekin topo egin zuelarik. Iñaki Mendiguren

6 ***eskrupuluzko*** *izond*

Nolanahi ere, herr Öchlerrek apenas aipatzen zituen erregimenak zigortutako edo debekatutako idazleak, eta aipatzen zituenean, tentu **eskrupuluzko** batez argitzen zigun autorearen ideiak ez zirela bereak. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskrupulurik gabe (5); **eskrupulurik gabeko** (6); **eta eskrupulu** (3)

eskrupulugabezia ik **eskrupulu 5**.

---

esku *(ETCn 259.872 agerraldi)* **1** *iz* giza besoaren amaiera zatia, ukitzeko eta hartzeko erabiltzen dena, bost hatz dituena; zenbait animaliaren kideko organoa, bereziki hatz bat besteen aurrez aurre jar dezaketenena; boterea, aginpidea, ahalmena; paret edo kidekoei ematen zion pintura edo kidekoen kapa. (ikus beheko konbinatorian esku hitzaren agerraldi maizkoenak)

Lan hori egiten genuen tigre larru itxurako oihal-etxola batzuei azken **eskua** emaiteko: 4 oihal-etxola puska elgarri botoinaturik lau gizonen aterbe izan zitezkeen. Marzel Etxehandi

2 ***esku-argi*** *(orobat **esku argi** g.er.)* eskuko argia.

Ohetik salto egin, jantzi, **esku-argi** bat hartu eta baratzera irten dira. Itziar Otegi

Esku-argi bat zeraman esku batean eta zerbaiten poto bat bestean. Koro Navarro

Batzuetan, zenbait ehiztari gauez irteten zen ehizara, **esku-argi** eta guzti, oilagorrak argira hurbiltzen baitziren. Juan Kruz Igerabide

Esku-argia hartu eta putzua argitu zuen. Koro Navarro

Barrura sartuta, leihatila itxi nuen, neurekin neraman **esku-argia** piztu, gainaldean eskua ipini, lurrera baino argi egin ez zezan, eta eskailerara joan nintzen; **esku-argia** itzalita, ilunpetan igo nintzen ganbaratxora, pauso bakoitza ondo bermatuz, maila bakoitzaren sendotasuna ziurtatu eta gero. Juan Kruz Igerabide

Arrosondoen azpira zuzendu zuen **esku-argia**. Koro Navarro

Argitu baino lehen esnatu, modu berezian jantzi, gainerako goizetan ez bezala, arropa egoki eta ongi hautatuak jantzi, beste modu batean gosaldu, uxual kopatxoaz bihotza bizkortu, eta **esku-argi** batez argiturik jangelan haragi hotza jaten duk. Xabier Olarra

Esku-argiaren foku hotzak gelako altzariak azaldu zizkidan. Alberto Ladron Arana

Ikusten ote zen kanpotik **esku-argiaren** errainurik? Juan Kruz Igerabide

Esku-argiarekin lurra argitu zuen. Koro Navarro

Esku-argi luxe batekin, ridgeback eta txakalaren nahasketa dirudien txakur gazte baten eztarria ari da miatzen. Oskar Arana

Esku-argi elektriko batek argitu gintuen, goitik behera; gero, barre-zantzo handi bat entzun genuen. Juan Kruz Igerabide

Norbaitek zapeta eta **esku argia** galduak zituen! Herria

2a ***esku(en) arte*** (leku deklinabide atzizkiez) cf **eskuarte**.

Belea hartu duzu **esku artean** eta errai apurtu bat dela ohartu zara. Harkaitz Cano

Pistola zorrotik atera eta **esku artean** erabili nuen. Alberto Ladron Arana

Harreragileak plano bat zerabilen **esku artean**: burokrata frantses bat, frantsesik ulertzen ez zutenekin zeharo zakarra. Joxe Austin Arrieta

Esku artean hartu eta zabaldu bitartean ez nuen imajinatzen ere zer topatuko nuen barruan. Xabier Mendiguren Elizegi

Idiakezek liburu bat zuen **esku artean**. Aingeru Epaltza

Erregearen beldurrez ez balitz, behartsuak berehala hil egingo zukeen, edo handik jaurti, edo **esku artean** zeukan dirua kenduko. Xabier Kintana

Ximurrak **esku artean** zeukan freskagarri kaloriaz hustua tentazio eskasa zen niretzat. Aingeru Epaltza

Bolantea **esku artean** hartzen zuenean, onena zen. Harkaitz Cano

Kontrolatu uste zituen zentzumenak **esku artean** lantzen ari zen zigarroari eskaintzen saiatu zen. Josu Landa

Gizonak, **esku artean** zeukan kapela egiteari utzirik, sorbalda jaso, eta burua hondoratu zuen bertan. Anjel Lertxundi

Ohiko kontuez gain, nik **esku artean** neukan egitasmoaren berri azaldu nien gurasoei, luze eta zabal. Joxerra Garzia

Bat-batean, aurpegia **esku artean** ezkutaturik, zotinka hasi zen. Josu Zabaleta

Zeharka begiratzen dio aldameneko gizonari -liburua **esku artean** zabalik, irakurtzen ari dela dirudi-. Imanol Zurutuza

Letoizko potoa hartu zuen **esku artean**, berriro. Joxemari Urteaga

Arreta **esku artean** genuen kontu hari jartzen hasi nintzen apurka-apurka. Oskar Arana

Leiho ondoko siloian jarrita ematen zituen arratsalde osoak, bere txokoan kuxkurtuta, gantxillo edo puntuaren orratzak **esku artean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Zertan ari dira ume horiek! Zer darabilte **esku artean**! Bernardo Atxaga

Seme-alaben gosea apaldu behar zuen aingirak **esku artetik** ihes eginda esku hutsei beha geratu den arrantzalearen barne negarra. Imanol Zurutuza

Nik ordea betidanik ezagutzen zaitut zu, nire bihotzaren otzaran bizi den piztia zara, aingira, hori zara zu, ihes egiten didazulako **esku artetik**. Koldo Izagirre

Irrist egin nien **esku artetik** aingirak bezala. Fernando Rey

Zenbat harribitxi pasatu ziren haien **esku artetik**! Jon Muñoz

Sei hilabete Fenwick tenienteak "patata-zomorro" deitzen zuen haren atzetik, nora alde egin ote zuen, babesa nork eman ote zion, zer ari ote zen prestatzen jakin nahiz; sei hilabete luze **esku artetik** aldegin zionetik. Joxemari Urteaga

Emmak ene anaiaren begitartea bere bi **eskuen artean** hartu zuen eta garrasika hasi zen: [...]. Daniel Landart

Txunditurik naukak -begirada jaitsi zuen liburura gero, Biblia zabalik baitzeukan bi **eskuen artean**. Anjel Lertxundi

Aurpegia bi **eskuen artean** gorderik, zotinka hasi zen. Josu Zabaleta

Paperik gabeko etorkin guztien inbidiagarri izango ziren segurutik zeru hutsera begira jarritako milaka esku paperdun haiek: [...] guk paper xixtrin bat bera ere ez patrikan, eta hauek, patrikan ez ezik, bi **eskuen artean** beldurtzeko paper mordoa, alajaina!". Iñaki Segurola

Jatetxe batera joaten baginen, edo elkarrekin paseatzera, nire eskua bere **eskuen artean** hartu, eta, mintzo goren antzez-giroko batez, esango zidan: [...]. Anjel Lertxundi

Harena hotzak zegoèn untxi txiki bat zen, eta neure **eskuen artean** berotzeko gogoa sentitu nuen. Joan Mari Irigoien

Halako batean zakil luze eta txuri-txuria hantxe nuen nire aurrean, apaiz baten **eskuen artean**. Alberto Barandiaren

Keinu trakets bat egin zuen, aurrera makurtu, pipa **eskuen artean** estutu eta begiak zabal-zabal eginez: ez zuen asko behar izan lurrera erortzeko. Josu Zabaleta

Zapata kaxa bat zeukan **eskuen artean**. Harkaitz Cano

Altxor paregabe bat badugu **eskuen artean**, gure ama hizkuntza. Herria

Ez nuen sekula mekanizatuko Schumannen piezaren azken partean jokatzen den bi **eskuen arteko** elkarrizketa. Anjel Lertxundi

Azkeneko Allegro-an modu distiratsuan adierazi zuen **eskuen arteko** erritmo kontrajarria: eskuinekoa hirutara, ezkerrekoa bitara zeramatzan bitartean. Berria - Kultura

Azkenean, egunaren kontrola eskapatu baitzaio **eskuen artetik**. Berria - Harian

Sokak irrist egiten zidan **eskuen artetik**. Jesus Mari Mendizabal

2b ***esku arteko*** *(orobat **eskuarteko**) izlag* eskuen artean duena edo duguna. (orobat irud/hed)

Munduaren erroen eta ardatzen sekretua kutxa ondo babestean balego legez jardun nuen, alegia, adiago **eskuarteko** zereginari itsasoari baino. Edorta Jimenez

Halako kasuetan, belarriak barrendik itxi, eta **eskuarteko** egitekoan kontzentratzen naiz buru-belarri. Jesus Mari Mendizabal

Ni ere hortxe egongo nauk laster bukatzeko uste-irrika horretan zain, hi indarberritu eta denen onerako bukatu dadin gure **eskuarteko** lan hau. Patxi Ezkiaga

Pentsamolde marxistak ere -XIX. mendea- pentsamendu klasikoaren ildotik jarraitu zuen **eskuarteko** dugun gaiari dagokionez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zuretzat **eskuartekoak** diren zenbait jakingai motaren berri ez duen pertsona, eta zuretzat erabat ezezagunak diren beste batzuk dakizkiena Mentxuk amiñi bat alboratu zuen **eskuarteko** albuma, gaztearen begirada definigaitza noranzkoa ote zen jakitearren. Xabier Olarra

Begiak **esku arteko** paperetatik goititu gabe mintzatu zitzaien nire eramaleei. Aingeru Epaltza

Esku arteko fitxa multzo hartan bila jarraitu zuen. Iñaki Iñurrieta

-Badakik zer den hau? -**esku arteko** tramankuluari begiratu zion-. Josu Landa

Baina hauek azaltzen hasiko banintz, urrunegi geratuko litzaidake nire **esku arteko** gaia.· Mahai gainean gelditutako tabako apurrez zigarro bat egiten hasi zen Mentxu, baina mahaian jotako beste kolpeak dardararazi zion **eskuartekoa**. Juan Martin Elexpuru

3 *esku bete* *(orobat **eskubete**; ik beherago **13a**)*

Galdetu dion arte, **esku betea** bizkar gainean paraturik, Nahi al duzu, hemendik aurrera, nirekin gelditu. Jon Alonso

· *(neurri gisa deklinabide atzizkirik gabe)* Isil-misilka, Malfoyren, Crabberen eta Goyleren atzera pasatu zen Harry, makurtu eta **eskubete** lokatz hartu zuen bidetik. Iñaki Mendiguren

Sarritan, hogei dolarreko billete batekin etxeratzen zen edota **esku bete** dolar zimurturekin. Mirentxu Larrañaga

Neure herriaren aurrean profanatzen nauzue **esku bete** garagar eta ogi-zati batzuengatik. Elizen arteko biblia

Hurbildu zen anai Bernardogana eta, eskua dirua zeukan soingainekoan sarturik, **esku bete** diru atera eta apaizari eman zion. Askoren artean

Esku bete lan dut. Mirentxu Larrañaga

-Hara, Ramirez, **esku bete** lan nabilek gaur eta ez diat saltsa gehiagorik nahi. Aingeru Epaltza

Etorkizuna **esku bete** ilusio eta itxaropenez, bakean begiratzeko garaia da. Berria - Euskal Herria

Esku bete egiarik ere ez dut (Arestik bere meza poetikotan bezala) edonori purraka saltzeko. Patziku Perurena

3a *esku betean*

Garbi zegoen Mendebaldeko europar klase ertainarentzat ezinezkoa zela, Ipar Amerikako klase ertainari jarraituz, langile-klaseari **esku betean** eskaintzea bi gauza erakargarriok: klase ertainaren bizi-maila eta norberaren gurariak asetzeko aukera-ugaritasuna. Iñaki Mendiguren

Liburu Santuak dioen bezala: **Esku betean** ematen die behartsuei, haren eskuzabaltasunak betiko dirau. Elizen arteko biblia

Hala ere, hobe da esku-hutsik lasai bizi, **esku beterik** neketan baino. Elizen arteko biblia

4 *esku beteka* *(orobat **eskubeteka**)* ugari.

Batak irabazitakoa partsimoniaz gordetzen duelako eta **esku-beteka** xahutzen duelako beste batek. Esteban Antxustegi

Lisimako erasotzen ari zela ohartzean, batzuek harriak eta beste batzuek makilak hartu zituzten; beste batzuek, berriz, han zegoen erraustsa **esku beteka**. Elizen arteko biblia

Ondoren, elurra **esku-beteka** hartuz, zazpi txorimalo egin zituen. Askoren artean

Esku-beteka banatzen nituen gozokiak, eta inoiz ez nintzen neure ustez betetzen. Josu Zabaleta

Bigarren bizitzako areto txikiaren atea itxi bezain laster, harengana joan nintzen hitzik egin gabe eta hankarteari oratu nion **esku beteka**. Karlos Zabala

Hiltokiko harrien gainean luma pila handiak zeuden botata, eta Lisak lumak **esku beteka** har zitzan nahi izan zuen Marjolinek. Karlos Zabala

Ustelkeria ez zen estaltzen; fiskoaren eskubidea aldarrikatu, eta fiskoaren ondasunak **eskubeteka** eta gogara ematen ziren. Iñaki Iñurrieta

Ondoren, elurra **eskubeteka** hartuz, zazpi txorimalo egin zituen. Askoren artean

Erregeak bere predikua dotoreki bukatu zuenean, **eskubeteka** jo zituzten txaloak, sutsu, eta gainontzeko portugaldarrek festari lagundu zioten, biak bezain sutsu haiek ere. Jon Alonso

4a *esku-bonba* *(orobat **eskubonba**)* *iz* eskuz jartitzen den bonba.

Batek, neure aurre-aurrean, bizkarra ematen zidan, eta gerritik **esku-bonba** bat zeukan zintzilik, alemana, zurezko bere giderrarekin, epean eztanda egiten duten horietarikoa. Juan Garzia

Horregatik ez zitzaion arraroa iruditu, esku trebatu batek armak partitzeari ekin zionean, banaketan **esku-bonba** batzuk eta asaltozko metrailadora bat egokitzea Aurrez aurreko gudu haietan galdu omen zuen Beñardok ere bere zangoa, **esku-bonba** batek eramana airean, eta geroztik ospitale hartara ekarri zuten. Banekielako etxe zaharraren azpiko hartzuloan sei bidoi gasolina, laurogeita hamabost metraileta, berrehun eta hirurogeita hamabost **eskubonba**, bi munizio kaxa, zazpi ametrailadora eta hiru kintal dinamita zeudela ezkutaturik. Berria - Kultura

Aurrez aurre, baionetaz edo **esku-bonbaz** edo metraila puskailek lepoa eginda elkar hil behar genuenok, onik irtenak ginen eta elkarrekin bizi behar genuen aldi batez behintzat. Koldo Izagirre

5 *esku hartu* *(orobat **eskuhartu** g.er.)* parte hartu, eskuarki besteren baten kontu edo gorabeheretan.

Antza denez, ez zuen **esku hartu** nahi izan senar-emazteen arteko arazo pribatua zela iritzi ziolako. Ramon Saizarbitoria

Liburu horretan batere erreparorik gabe esaten zuen hizkuntzak "organismo naturalak" direla, "giza nahiak **esku hartu** gabe sortu, lege jakin batzuen arabera garatu, zahartu eta hil egiten direnak". Joxe Azurmendi

Gizon hura luzaz bizi izan zen mundu honetan, harik eta Neron enperadoreak, Kaio Kalpurnio Pisonek antolatutako konspirazioan **esku hartu** izanaz akusaturik, bere buruaz beste egiteko agindua eman zion arte, Kristo ondoko 65. urtean. Imanol Zurutuza

Azken atalean datoz; hor dakar Stamford-eko zubiko guduan **esku hartu** nuela. Juan Garzia

Barrabilak zanpaturik dituenak nahiz irenduak ez du **esku hartuko** Jaunaren batzarrean. Elizen arteko biblia

Hiritarrak **esku hartu** behar du politikan. Markos Zapiain

Nehork ez zien sekulan aipatu hemen ere Erresistentziak **esku hartu** zuela. Eneko Bidegain

Warwick-eko kondeak **esku hartu** ez balu, zintzur egingo zioten bertan. Juan Garzia

Ezin nuen mundu hartan **esku hartu**, mundu hartatik at nengoen, ez nintzen mundu hartakoa. Mirentxu Larrañaga

Cristobal de Virues: antzerkigilea, Cervantesekin eta Juan Ruforekin Lepantoko bataila ospetsuan **esku hartu** zuena. Patxi Ezkiaga

-Saruman - **esku hartu** zuen Galadrielek-, hire pausoen atzetik joatea baino zeregin eta kezka askoz larriagoak ditiagu, halaxe uste diagu behinik behin. Agustin Otsoa

1894az geroztik, Korean **esku hartu** eta Txina militarki garaitu zuelarik, Japoniak bere asmo espansionistak berretsi zituen. Koro Navarro

Esku hartu nahi dut neure aldetik, dakidana azaldu neuk ere. Elizen arteko biblia

Nik ez nuen **esku hartu** inolako ekintza bortitzetan, ez zuzenean ez zeharka. Agurtzane Juanena

Txitxikovek ere **esku hartu** zuen eztabaidan, baina hain trebetasun handiz jardun zuen, ezen denak konturatu baitziren oso gizon adeitsua zela eztabaidatzeko orduan ere. Jose Morales

Itoitzen ETAk ez du **esku hartu**. Edurne Elizondo

Baina ber-bertatik hilko zituzten bi kazetariak, emirraren gudalburuak **esku hartu** izan ez balu. Karlos Zabala

Argi eta garbi ikusi zuten Jainkoak berak **esku hartu** zuela Frantzisko dohatsua kontsolatzeko. Agustin Otsoa

Hurrengo igandean, Peppone alkateak agintari guztiekin **esku hartu** zuen On Camilloren klub-jostalekuaren lehen harri-jartzean. Koldo Biguri

Jaunaren legearen arabera gobernatu zuen batzarra eta Jaunak Jakoben herriaren alde **esku hartu** zuen. Elizen arteko biblia

Zortzigarren mendean Ekialdeko Kristandade Ortodoxoan irudi-gurtzari buruzko liskarrean Erromatar Aulkiak Ekialdeko erromatar gobernu inperialaren politika ikonoklastaren aurka **esku hartu** zuenean. Iñaki Mendiguren

Europarrek, alabaina, ez zuten oraindik ekoizpenean **esku hartzen**, nahiz eta, salgaietan egiten zituzten aurrerapenen bidez eta sartzen hasi ziren diruaren bidez, ekoizpena zeharka kontrolatu. Koro Navarro

6 *esku-hartzaile* *(orobat **eskuhartzaile** g.er.)*

Inperioaren gerra koalizioak bere estrategia **esku-hartzaile** bat berriz pentsatu beharko du. Berria - Mundua

Gehiegikeria horiek erabat zabalduak zeuden eta orain arte horietan **esku-hartzaile** moduan aipatutako unitateetatik besterik ere sartuta daude auzian», dio txosten horrek. Berria - Mundua

Kulturaren izenean Unamuno Estatu sendo, herri arazoetan zuzenean **eskuhartzaile** baten abokatu bilakatu da. Joxe Azurmendi

“UEMAren iritziz, ‘mundu mailako edo Espainia eta Frantziako makroegitasmo kultural uniformizatzaileen aurrean, dibertsifikatuagoak diren bertako egitasmo **eskuhartzaile** txikiek baitute arrakasta eta etorkizuna”. Patziku Perurena

Okupazio indarren eta Irakeko segurtasun indarren aurkako gerrillan **esku hartzailerik** ez dadin sartu. Berria - Mundua

7 ***esku hartze*** *(orobat* ***eskuhartze*** *g.er.)*

Estatuak aurrekontuetan jasotzen duen gastu publikoaren bidez gauzatzen du bere **esku-hartzea**. Iñaki Heras

Kristoren ministerioa [...] ebanjelioetan Jainkoaren beraren **esku-hartze** gisa aurkezten da Teoria tradizionala ez zen eskariaz ia arduratzen, dirua eta denbora historikoa ez zituen kontuan hartzen [...], aurrerapen teknikoa konkurrentziaren eremutik baztertzen zuen (exogenoa zelakoan), eta estatuaren **esku-hartze** ororen kontra egiten zuen. Iñaki Mendiguren

1919ko iraultzan **esku hartze** eraginkorra eta bortitza izan zuen, eta Al-Husain plazako tabako konpainiaren erreketa leporatzen zitzaion. Patxi Zubizarreta

Ezadostasunok Fidel Castroren **esku hartze** zuzenari esker konpondu ziren, eta iraultzaileen arteko balizko enfrentamenduak horrelaxe saihestu ahal izan ziren. Edorta Jimenez

Merkatuaren dinamikaren parte handi bat **esku-hartze** publikoek egituratzen zuten sistemaren aldi berekoa da. Koro Navarro

aitaren eskutik (8); **argitaletxearen eskutik** (63); **argitaletxearen eskutik kaleratu** (9); **bat eskura** (29); **bat eskutan** (19); **bat eskutik** (9); **baten eskutan** (9); **baten eskutik** (41); **beraren eskutik** (12); **bere eskuko** (17); **bere eskura** (11); **bere eskutan** (10); **bere eskutik** (25); **beren eskutan** (8); **beti eskura** (10); **bigarren eskuko** (63); **bigarren eskuko liburuen** (10); **bigarren eskukoa** (10); **bitartean heldu eskutik** (12); **denon eskura** (10); **disketxearen eskutik** (13); **ditu eskura** (14); **dituzte eskura** (8); **du eskura** (16); **dute eskura** (8); **edo eskuko** (8); **elkarri eskutik** (12); **elkartearen eskutik** (36); **en eskutik** (22); **ere eskura** (19); **ere eskutik** (8); **esku eskura** (73); **esku eskura du** (12); **esku eskura izan** (9); **eskuin eskuko** (67); **eskuin eskuko hatz** (27); **eskuko eta** (14); **eskuko hatz** (56); **eskuko hatzak** (10); **eskuko huts** (9); **eskuko informazioa** (9); **eskuko liburuen** (10); **eskuko mina** (21); **eskuko minez** (14); **eskuko poltsa** (16); **eskura dago** (11); **eskura dagoen** (9); **eskura daiteke** (13); **eskura daitezke** (14); **eskura dauden** (11); **eskura dezake** (16); **eskura dituen** (22); **eskura ditugun** (17); **eskura dituzten** (14); **eskura ditzake** (8); **eskura du** (75); **eskura duen** (10); **eskura dugun** (8); **eskura dute** (20); **eskura eduki** (13); **eskura eman** (71); **eskura eman zion** (15); **eskura emango** (11); **eskura ematen** (24); **eskura eta** (20); **eskura ez** (17); **eskura izan** (70); **eskura izan zuen** (17); **eskura izan zuten** (9); **eskura izango** (16); **eskura izatea** (13); **eskura jarri** (33); **eskura jarriko** (10); **eskura jartzeko** (9); **eskura jartzen** (12); **eskura jokatu** (9); **eskura zituen** (10); **eskura zuen** (18); **eskurik ez** (13); **eskurik gabe** (15); **eskutan eta** (9); **eskutan hartu** (19); **eskutan hartuta** (8); **eskutan hartzen** (8); **eskutan utzi** (12); **eskutik egin** (8); **eskutik eskura** (38); **eskutik eta** (25); **eskutik etorri** (19); **eskutik etorriko** (10); **eskutik hartu** (49); **eskutik hartu eta** (16); **eskutik hartu zuen** (10); **eskutik hartuta** (19); **eskutik hartzen** (8); **eskutik heldu** (147); **eskutik heldu dio** (9); **eskutik heldu eta** (42); **eskutik heldu zidan** (11); **eskutik heldu zion** (32); **eskutik heldurik** (19); **eskutik helduta** (141); **eskutik helduz** (9); **eskutik heltzen** (25); **eskutik ihes** (10); **eskutik iritsi** (15); **eskutik jaso** (20); **eskutik joan** (14); **eskutik kaleratu** (11); **eskutik kendu** (21); **eskutik oratu** (8); **eskutik utzi** (10); **eta eskuin eskuko** (11); **eta eskuko** (23); **eta eskura** (70); **eta eskura eman** (15); **eta eskutik** (60); **eta eskutik heldu** (20); **eta eskutik helduta** (11); **ez eskurik** (8); **ezker eskuko** (34); **ezker eskuko hatz** (16); **garaipena eskura** (10); **gazteriaren eskutik** (27); **gobernuaren eskutik** (10); **guztiak eskura** (12); **guztien eskura** (14); **haren eskutik** (26); **heldu eskutik** (14); **herritarren eskura** (16); **indarren eskutik** (8); **iruriko gazteriaren eskutik** (12); **jainkoaren eskutik** (10); **jaunak eskura** (10); **lehen eskuko** (11); **lehen eskutik** (10); **nire eskutik** (26); **oso eskura** (10); **ren eskutik** (19); **taldearen eskutik** (24); **zion eskutik** (14); **zuen eskura** (11); **zure eskutik** (9)

aurtengo eskuz (20); **aurtengo eskuz banakako** (12); **bere eskuz** (90); **beren eskuz** (18); **bi eskuz** (13); **da eskuz** (13); **denak eskuz** (8); **donostia eskuz** (14); **du eskuz** (11); **epelen eskuz** (22); **epelen eskuz banakako** (11); **epelen eskuz binakako** (11); **eskuz aldatu** (15); **eskuz banaka** (15); **eskuz banakako** (138); **eskuz banakako txapelketa** (18); **eskuz banakako txapelketako** (28); **eskuz banakako txapelketan** (17); **eskuz banakako txapelketaren** (23); **eskuz banakakoa** (12); **eskuz banakakoan** (18); **eskuz binaka** (11); **eskuz binakako** (85); **eskuz binakako san** (9); **eskuz binakako txapelketako** (14); **eskuz binakako txapelketaren** (11); **eskuz egin** (17); **eskuz egindako** (20); **eskuz eginiko** (11); **eskuz egiten** (14); **eskuz esku** (312); **eskuz esku ari** (11); **eskuz esku eta** (8); **eskuz esku ibili** (10); **eskuz esku jardun** (10); **eskuz esku lanean** (8); **eskuz eta** (14); **eskuz idatzi** (8); **eskuz idatzia** (11); **eskuz idatziak** (8); **eskuz idatzita** (17); **eskuz idatzitako** (44); **eskuz lan** (9); **eskuz ukitu** (11); **eskuzko pilota** (15); **eskuzko pilota enpresen** (13); **eta bere eskuz** (11); **eta eskuz** (61); **eta eskuz esku** (10); **giza eskuz** (16); **mailako eskuz** (12); **neure eskuz** (23); **nire eskuz** (8); **zeure eskuz** (11)

---

eskuadra 1 *iz* banako tekniko bat osatzen duen gerraontzi edo hegazkinen multzoa.

Armada katoliko honetan ontziak dira zortzi **eskuadratan**. Edorta Jimenez

18 British Leyland kamioiak zebiltzalarik kooperatiba sozialistak erretzen zituzten **eskuadrekin**. Koldo Biguri

Eskuadra ingeles baten ihesi zetorren. Koldo Izagirre

Hirugarren **Eskuadra** da Gaztelakoa, zeinetan baitira 14 galeoi eta ontzi handi, Diego Flores Valdeskoaren agindupean, 2.458 soldadu eta 1.719 marinel dituena. Edorta Jimenez

Gipuzkoako **Eskuadraren** buru egiten zuen gizonak, Santiagoren abitua janzten zuenak, Inkisizioak zigortua zen. Edorta Jimenez

Mariskalak, zalditeria- **eskuadra** batzuen ondoan geldituirik, aginduak ematen jardun zuen luze. Jon Alonso

Bonbardaketa **eskuadra** batek defenditzeko aukera pixka bat ematen duen tiro ahalmena esan nahi du, baina behaketa ekipoak, zeru osoan bakar-bakarrik, inoiz ez ditu menderatuko hirurogeita hamabi metrailadore. Josu Zabaleta

2 buruzagi baten agindupeko pertsona taldea.

Hiru ordu laurdenen barruan bueltan zen, **eskuadrako** hogeitabost gizonekin. Koldo Biguri

Bigarren **eskuadra** beste 30 bolondresek (arabarrak oraingoan) osatu zuten. Txillardegi

Momentu batetik bestera agertuko dira berriro kooperatibak eta herriaren etxeak erretzen dituzten ekintza **eskuadrak**, eta jendeari egurra eta errizino-olioa ematen hasiko dira. Koldo Biguri

Gero, hilaren hamabian, gure herrira heldu zenean, banderaz **eskuadraz** musikaz errezibitu zuen batailoiaren aldamenean zeukan aiduru Font i Andreu probintziako apezpikua kapaz kapeluz makuluz. Koldo Izagirre

Martxan aurreneko, gastadore liliputarrek osatutako **eskuadra** eder bat ageri zen, lehen inperioko uniforme distiratsuz jantziak. Askoren artean

3 eskuaira.

Han barruan erori dena "ero garbia" da, esan ohi den bezala, eta badaki zer esaten duen: normaltasunetik dator, normaltasunak erotu zuen (lautasunak, laukitasunak, **eskuadrarekin** ebakitako bizi-uste batek; [...]). Iñaki Segurola

Bere eskuineko eskuak **eskuadrak** marrazten zituen airean, ez arabeskorik eta ez meridianorik. Joxean Agirre

4 futbolean, ateko makilak osatzen duten angelu zuzena.

Baloia **eskuadratik** sartu zen, Van der Sarren jauzia ezerezean utzita. Berria - Kirola

Iraolak motzean Yesteri, honek Del Hornori pasea eman eta Gallartakoaren zartakoa **eskuadratik** sartu zen. Berria - Kirola

---

eskuadratxo *iz* eskuadra txikia.

Horren ondoren, orpoaz jota buztina eroraraztea nahikoa, **eskuadratxo** bat aski, bat eta bi kontatu baino lehen zulo barrenean lurperaturik! Josu Zabaleta

eskuadrila ik **eskuadrilla**.

eskuadrilla *(orobat **eskuadrila** g.er.)* *iz* lagun gutxiko eskuadra.

Kalearen behealdean Guardia Zibilaren **eskuadrila** joana zen. Jon Maia

Eskuadrilla batek, ostiko batez, herrixka birrintzen du. Josu Zabaleta

Eskuadrillaren bulegotik atera zenean. Josu Zabaleta

- **Eskuadrilla** guztia suntsitua zen eta banentorren ni bakarrik neure Polikarpov I-16 xaharrarekin basera. Koldo Izagirre

Alejo Bilbao kapitainaren konfiantzazko lemazaina *Bizkaia* bou loriatsuan, *Cervera* destroyerraren hirurogeita sei kanoikada hartuta hondoratua, eta gero Polikarpov I-16 Nº 2 Ehiztari **Eskuadrillakoa**. Koldo Izagirre

Brigada buruak Vicenteri zerbait esaten zion bitartean, **eskuadrillakoek** fusila bi eskuetan heltzen zuten, urduri, erne, une bakar batez ingurua behatzeari utzi gabe. Jon Maia

eskuadrista *iz* eskuadra bateko kidea.

Egunkarian "egoitza faxistak" eta **"eskuadristak"** aipatzen dituzte, argi dago. Koldo Biguri

-Berori ez da apaiza, berori **eskuadrista** bat da! -oihu egin zuen, haiekin elkartzean, federazioko arrain lodiak. Koldo Biguri

On Camillo -esan zuen Kristok, bere onera itzulirik-, espero dut orain ez didazula leporatuko **eskuadrista** baten iragana izatea! Koldo Biguri

eskuadroi **1** *iz* hainbat hegazkinez osaturiko banakoa.

Artean Mexikon bizi zen Patxi Ibarluzeak **Eskuadroikoen** pilotuen artean egoteko modua izan zukeen. Edorta Jimenez

"201. **Eskuadroia**, Ozeano Barean ohorez jantzia dena, hiriburuko kaleetan barrena desfilatu zuen, kaleok loriazko dardaretan zirelarik. Edorta Jimenez

Eskuadroia, aldiz, ekainean sartu zen gerra ekintzetan lehenengoz, Filipinetan. Edorta Jimenez

2 zalditeria banakoa, eskuarki kapitain baten agintepean dagoena.

Gero, **eskuadroi** tatariar bat etorri, gudako janzkerarekin, eta dantzarien artean nahasi zen. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Von Freische baroia buru duten gazte **eskuadroietako** ofiziala da Heinrich eta haren mailak distira ematen dio gure etxeari, sarri etortzen baita baroia Heinrich eta hainbeste miresten duen Elsa bisitatzera. Ramon Etxezarreta

Iluntzerako argi guztiak itzalita egon behar zuten, soldadu **eskuadroiek** argirik begiztatuz gero, etxeko atea behera botako zuten, barrura orroka sartu eta etxeko gizona beraiekin eramango. Jon Maia

Aire-**Eskuadroiaren** Bandera, hots, Mexikok 1945eko otsailaren 24an itsasoaz bestaldera bidali zuena. Edorta Jimenez

4 irud/hed

Haize mehe batek altxaturiko euli-**eskuadroiak** airean hegaz sartzen dira etxera, ausart. Jose Morales

Aurrera eta atzera ibiltzen dira azukre-mokorren gainean, ukitutxoak egiten dizkiote elkarri aurreko zein atzeko hankatxoekin, edo hazka aritzen dira hegaltxoen azpian, edo -aurreko bi zangoak luzaturik- buru gaina igurtzitzen dute, jiratu eta hegaz alde egiten dute, eta atzera itzultzen dira gero **eskuadroi** gogaikarri gehiagok lagundurik. Jose Morales

5 ***heriotza*** *(orobat **heriotzaren eskuadroi** eta **heriotz eskuadroi** g.er.)* talde terrorista paramilitarra.

1986 eta 1988 bitartean, dozenaka aurkari hil zituzten Haitiko Armadako **heriotza eskuadroietako** buruzagi izan zen [Louis-Jodel Chamblaini]. Berria - Mundua

Sunitak hiltzeko **heriotza eskuadroiak** antolatzea leporatu zion Barne Ministerioari: «Milaka irakiar torturatu eta hil ditu erakunde horrek». Berria - Mundua

Luis Javier Correa Sinaltraineko lehendakariaren arabera, Coca-Colak ordaindutako talde paramilitarrek **heriotza eskuadroiak**, sindikatu horretako hainbat bazkide hil, torturatu eta bahitu dituzte, baita bazkideen senideak ere. Berria - Mundua

Horren arabera, Irakeko Barne Ministerioko **heriotza eskuadroi** bat irakiar sunitak hiltzen aritu da. Berria - Mundua

Iraken zurrumurru ugari daude okupazio indarrak eta Iraken dituzten bezeroak batera daudela eraso sektarioekin eta **heriotzaren eskuadroiekin** lotuta. Berria - Harian

Nikaraguan orain ez dago ezkutuko espetxerik edo **heriotzaren eskuadroirik**. Berria - Mundua

Gauero **heriotzaren eskuadroiak** ibiltzen dira kaleetan. Berria - Mundua

eskuagur **1** *iz* eskuarekin eginiko agurra.

Saltoa eman nuen antoxina eta koilara esku batean nituela, eta bestearekin **eskuagurra** egin eta nire burua aurkeztu nuen. Fernando Rey

2 ***esku-agurka***

Gustura filmatuko nukeen, baina ez, eta **esku-agurka** jarraitu nintzaion jendetza artean aienatu zenetik gerora ere. Joxe Austin Arrieta

eskuahur *iz* eskuaren ahurra.

Hor dago, **eskuahur** irekian, zimurtua, denbora guztian bilatzen eta ukitzen ibili balitz bezala. Jon Alonso

Gune txiki batzuk baino ez ditu gorputzak batere hilerik gabeak, hala nola oin azpiak eta **eskuahurrak**. Irene Aldasoro

Nire eskuen gainean erori nintzen eta harrien ertz zorrotzek zauriak egin zizkidaten **eskuahurretan**. Fernando Rey

eskuaira **1** *iz* angelu zuzenak marrazteko edo lerro zutak eraikitzeko lanabesa. ik**eskuadra 3**.

Geometriak ere laguntza handiak ematen dizkio arkitekturari; horietako lehenengoa, erregela eta konpasa erabiltzeko trebetasuna ematen duela, eta, ondoren, errazagoa izaten dela eraikuntzen orubeetan trazak egitea, **eskuairak**, nibelak eta lerroak erabiliz. Santiago Iruretagoiena

Zarpeoa pixka bat lehortu denean, kareorearen lerrokadurak markatuko dira, luzetarakoak erregela eta kordelarekin, altuerak berunarekin, eta angeluak **eskuairarekin** ondo markatuz. Santiago Iruretagoiena

Nola etxegintzan, hasierako erregela okerra bada, eta **eskuaira** gezurtiak elkarzuta zaintzen ez badu eta berunak apur bat albora egiten badu, nahitaez denak gaizki eta oker gelditu behar duen, [...]. Xabier Amuriza

2 ***eskuairan*** 90 graduko angelua osatuz.

Besoak izaten ditu muturretan, biak neurri berekoak eta erregelaren buruetan **eskuairan** elkartuta geratzen direnak. Santiago Iruretagoiena

Orduan plano batean lerro bat egingo da eta lerro horren erditik beste perpendikular bat, ondo **eskuairan** egongo dena eta gnomoa deituko dena. Santiago Iruretagoiena

eskuairatu *izond* eskuairan egina.

Esaten da Beroso Kaldeakoa izan zela bloke **eskuairatu** batean zulatutako eta latitudearen arabera ebakitako hemizikloa asmatu zuena. Santiago Iruretagoiena

---

eskuaire *iz ipar* trebetasuna.

Gure helburua da jendartearen zerbitzua eta nahiago dut erran gure negozioa saltze bat baino gehiago dela, zerbitzu baten eta trebetasun edo **eskuaire** baten eskaintza bat. Herria

Asma zitekeen **eskuairearekin** egin baitu Andere Sailburuak bere lana. Herria

---

eskual ik **euskal**.

---

eskualdaketa *iz* eskualdatzea.

Legea ez hausteko, eroste-agiri baten bidez egingo dugu **eskualdaketa**, arimak bizirik baleude bezala. Jose Morales

Hitz gutxitan azaldu zion **eskualdaketa** edo salerosketa paperean bakarrik egingo zutela eta bizirik baleude bezala errejistratuko zituztela nekazari hilak. Jose Morales

Beren ondasunekin enpresa bat osatzen dute, eta oinordekotzan enpresaren partaidetzak utzi, horien **eskualdaketa** zergek ez zamatzea errazagoa baita. Iñaki Heras

---

eskualdatu, eskualda(tu), eskualdatzen du *ad* zerbait, eskuarki aginpidea, ahalmena, ondasunak eta kidekoak, eskuz aldatu.

Xedetzat hartuta etxaguntza ahalik eta batuen **eskualdatzea** belaunalditik belaunaldira. Andres Urrutia

Kontratuak eta oinordetzak dira nork berea ez duena eskuratzeko eta jada norberarena den hori **eskualdatzeko** modu nagusiak. Josu Zabaleta

Xingola denda txikia modu onean **eskualdatu** zuen, eta, horri eskerrak, amaren zorrak kitatu zituen. Karlos Zabala

Espainiako Gobernuak **eskualdatu** gabe dituen transferentziak direla medio, Jaurlaritzak 200,6 milioi euroko gastua egin behar duela. Berria - Euskal Herria

Eskualdatu gabeko eskumenez akordioa lortzen saia gaitezke. Berria - Euskal Herria

Azken hiru aurrekontu egitasmoetan **eskualdatu** gabeko politikak finantzatzeko dirua identifikatu du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Enpresan nuen partea beiraginari **eskualdatu**, eta diru hari ispiluekin irabazi nuena gehiturik, karga-ontzi baterako bidai txartel bat inguratu dut. Juan Garzia

Casadok enplegu politika aktiboak **eskualdaturik** ez dituen erkidego bakarra EAE dela gogoratu zuen. Berria - Ekonomia

Ondasunak **eskualdatzeko** moduetan. Andres Urrutia

Aaronen arropa sakratuak beraren semeengana **eskualdatuko** dira, eta sagaratzean eta apaizgoa hartzean jantziko dituzte. Elizen arteko biblia

ELAk eta LABek INEM «osorik» **eskualdatzeko** eskatu dute. Berria - Ekonomia

1853an, Indiaren gobernua Konpainiatik koroara **eskualdatzeko** bezperan, aurrerantzean zerbitzua lehiaketa bidez hornitzeko Parlamentuak harturiko erabakiak atea ireki zien erakunde ez-ofizialen eremu zabalagoko hautagaiei. Iñaki Mendiguren

Washingtonek ziurtatu du botere **eskualdatzea** ez dela atzeratuko. Berria - Mundua

---

eskualdatze *iz* zerbait, eskuarki aginpidea, ahalmena eta kidekoak, eskuz aldatzea.

Botere ekonomikoaren **eskualdatze** hau, Europako hegoaldetik iparraldera, italiar hirietatik Probintzia Batuetara, Portugal eta Espainian barrena, oso puntu eztabaidatua da ekonomiaren historian. Koro Navarro

Protestaren helburua lan arloko eskuduntzen, tartean Inemen, **eskualdatze** «osoa» eskatzea izan zen. Berria - Ekonomia

Orubearen **eskualdatze** bakarra Sidenorrek geuri eginikoa izan zen. Berria - Ekonomia

Ni nintzen teorikoa, neu bakarrik; berak, nahiz laboratorioaren -hein batean, eta, gainera, **eskualdatze** halamoduzkoz- tituludun izan, eta bestelako merezimenduz harrotzeko ziorik ez zuelako, hain zuzen ere, ez zuen egoki eta gisako kritikaren bide hori. Juan Garzia

Subiranotasunaren **eskualdatze** benetakoa eta osoa behar da, eta oraingoz gauza asko argitzeko daude. Berria - Mundua

Sistani aiatola nagusiaren izenean hitz egiten zuen Ali Abdel Karim Safi al-Mussaui agintari erlijiosoak, eta gogor salatu zuen okupazio indarrek bideratu gogo duten botere **eskualdatze** plana. Berria - Mundua

Herrialdeko indar politikoak aztertzen ari dira zein izan liratekeen botere **eskualdatze** bat bideratzeko jokabide ezberdinak. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
botere eskualdatze (6); **botere eskualdatze bat** (3); **botere eskualdatzearen** (3); **eskualdatu gabe** (4); **eskualdatu gabeko** (4); **eskualdatze bakarra** (3)

---

eskualde *(ETCn **113.072** agerraldi)* **1** *iz* ezaugarri edo irizpide jakin batzuen arabera batasuna agertzen duen lurralde edo espazio hedadura; zerbaiten zatia.

Hala gertatzen da, beren eremu edo hedadura ofizial guztiari dagokiola, auzo, herri, bailara, mendi (kate) edo basamortuen izenekin [...] eta jakina, hortik gorako **eskualde**, herrialde, erresuma, nazio eta goragoko guzti-guztienekin. Iñaki Segurola

Soldadu turkiarren eta gerrillari kurduen artean Hakkari probintzian Irak, Iran eta Turkiako estatuek muga egiten duten **eskualdea** izandako borroketan 11 gerrillari hil dira berriki. Berria - Mundua

Bermeo eta Gernika hiriburutzat dituen **eskualdea**. Koldo Zuazo

Bizkaia zela gehien kontrolatzen zuten **eskualdea**. Inazio Mujika Iraola

EAE da Europar Batasunean unibertsitarioen langabezia handiena duen **eskualdea**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Fonetismo horiek onartu egin daitezke **"eskualdeko** euskalkian" dihardugunean, baina ez "herrialdeko euskalkira" igarotzerakoan. Koldo Zuazo

Ahozko jardunean, bestalde, ibar edo **eskualde** batetik bere ondokora aldatu ohi da hizkuntza, eta gaur egun bertan ikus dezakegunez, Gipuzkoako Goierrin era batera dena, bestela da bere inguruko Urolaldean, Tolosaldean, Deba ibarrean edo Sakanan. Koldo Zuazo

Badira hizkera berezia duten **eskualdeak**: kostaldea Lapurdin, Sakana Nafarroan, Debagoiena Gipuzkoan, edo Durangaldea Bizkaian, esate baterako. Koldo Zuazo

Elkarren segidan erortzen ziren auzoak, herriak eta **eskualdeak**, ilara harrigarrian. Txillardegi

Ekonomiaren historia, beraz, zentzu horretan, merkatuak apurka-apurka elkarrekin txertatu izanaren historia da, herritik edo hiritik hasi, eta, **eskualdeko**, nazioko, nazioarteko merkatuetatik igaroz, gaur egungo planeta osoko merkaturaino iristen da. Koro Navarro

Komunikazio zirkuitu alternatibo gisako bat da bertsolaritza, nazio, estatu, **eskualde**, herri edo mundu mailako aktualitateari hausnarraldia ematen dion eremu bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eskualde hartaz jabeturik, hilarazi egin zituen Antioko eta Lisias beronen hezitzailea. Elizen arteko biblia

Baina **eskualde** haietako gobernari batzuek -Timoteok, Geneoren seme Apoloniok, Hieronimok, Demofanek eta, gainera, zipretar gudarien buruzagi zen Nikanorrek- ez zieten bakean uzten juduei, ez eta lasai bizitzen ere. Elizen arteko biblia

Hurrengo urteetan, dohain eta edertasunean hazten zen neurrian, zuhaitzaren ospea **Eskualdeko** bazter guztietara hedatu zen. Agustin Otsoa

Erregeak mandatariak bidali zituen **eskualdeko** funtzionario guztiak biltzeko. Elizen arteko biblia

Hirugarren tribuaren **eskualdera** iritsi zirenean, herriaren sarreran Nour irudikatzen zuen idoloarekin egin zuten topo. Jon Arretxe

Orain hogei mila biztanle zituen, eta kale nagusia dendaz eta autoz betetako bulebar distiratsu bat zen; udaletxea, polizia-etxe bat, **eskualdeko** ospitale bat eta eskola batzuk zituen orain. Xabier Olarra

Ipuruak **eskualdeko** teknifikazio gune bat har dezake. Berria - Kirola

Nork bere **eskualdeko** hizkerari jarraitzen zioten Lapurdiko eta Nafarroa Behereko idazleek. Koldo Zuazo

Indiatik Etiopiarainoko ehun eta hogeita zazpi **eskualdeetako** ministrari eta gobernariei. Elizen arteko biblia

Lehen fasean, **eskualdeetako** txapelketak egiten dituzte, garai batean bezala. Berria - Kultura

Holako gerlatxo bat bada UMP eta UDF-en artean, azken hauek zorrotzak direla gobernuarekin eta, dirudianez ez dira elgarrekin joanen, ez **eskualdeetako** ez Europako hauteskundeetan. Herria

Bortu **eskualdeko** auzapezak bildu dira, Biarnoko Landa herrian. Herria

EHZ elkartea, bere partxuerrekin, harremanetan jarri da Taboye **eskualdeko** emazte multxo batzuekin, **eskualde** haren garapena sustatzeko. Herria

- (-ko deklinabide atzikiaren eskuinean)

Horiexek menderatzen dute nazioarteko zuzeneko inbertsioen fluxua munduko **eskualde** horretan. Koro Navarro

Eufrates ibaia igaro eta goi-lautadako **eskualdeetan** barrena ibili zen. Elizen arteko biblia

Herstura larri hartan, Pertsiara joan eta, hango **eskualdeetako** zergak bilduz, diru asko eskuratzea erabaki zuen. Elizen arteko biblia

Maiz utzi izan dut neure seme hau zuetako askoren ardurapean eta zainpean, iparraldeko **eskualdeetara** joan beharra izan dudanean. Elizen arteko biblia

Egungo egunean ere, Pikasarria da etxalderik ederrena Minotzeko **eskualdean** bai eta kasik Hazparne guzian. Xipri Arbelbide

Aldi hartan, Antiokok lotsagarri alde egin behar izan zuen Pertsiako **eskualdeetatik**. Elizen arteko biblia

Judean ez ezik, beroni atxiki zaizkion Samaria eta Galileako hiru **eskualdeetan** ere bai. Elizen arteko biblia

Mediako **eskualdean** dagoen Ekbatana hiri-gotorrean agiri bat aurkitu zuten, eta bertan txosten hau zegoen idatzia: [...]. Elizen arteko biblia

Galilean eta Arbata izeneko **eskualdean** bizi ziren juduak, beren emazte, seme-alaba eta zuten guztiarekin hartu eta Judeara eraman zituen pozaren pozez. Elizen arteko biblia

Asuero erregearen menpeko **eskualde** orotan, egun berean. Elizen arteko biblia

Lerro hori izango da hegoaldeko eta iparraldeko **eskualdeak** seinalatzen dituena. Santiago Iruretagoiena

"Toki menditsua eta karst asko dituena" esatea, edota "ekonomia mistoko **eskualdea"** esatea, ez zela nahikoa. Bernardo Atxaga

Gutunak igorri zituen erreinuko **eskualde** guztietara, **eskualde** bakoitzeko idazkeran eta herri bakoitzeko hizkeran emanak. Elizen arteko biblia

Egun hartan guzian eta ondoko bietan, Frantziako **eskualde** guzietatik etorri ziren presoak. Marzel Etxehandi

2 (izen propioen eskuinean aposizioan)

Mendebalari dagokionez, berriz, Busturialdean, Arratian, Lea-Artibai **eskualdean**, Durangaldean, eta administrazioz gipuzkoarra den Deba arroan dago euskararen indarra. Koldo Zuazo

Gaur ezagutzen den Hong Kong **eskualdea**, hiru eremu hauek dute beraz osatzen: [...]. Ramuntxo Etxeberri

Bere ardurapekoak zituen honek Manasesen seme Jair-en hirixkak, hots, Galaaden zeudenak; bere ardurapekoa zuen Baxan lautadan dagoen Argob **eskualdea** ere. Elizen arteko biblia

Grégoire delako apezpiku iraultzaile famatu hori, Lorrena **eskualdean** Emberménileko erretore xehe izanagatik, Nancyko diputatu egin zuten alabaina bere lagunek, eta Pariseko Estatu Orokorretara bidali, 1789an. Piarres Xarriton

Behin, Anconako Marka **eskualdean**, santuaren prediku baten ondoren, gizaseme bat etorri zitzaion, Ordenan sartzea apalki eskatuz. Askoren artean

Fanch erle eta ezti ekoizten hasi zen Eussa uharteko Ar Lann **eskualdean**, erosleen artean bidenabar, arrakasta ederra lortuz. Itxaro Borda

Gero, Siria eta Zilizia **eskualdeetara** joan nintzen. Elizen arteko biblia

Handik abiaturik, Kasfo, Maked, Bosor eta Galaad **eskualdeko** beste hiriak ere hartu zituen. Elizen arteko biblia

Demetriok, berriz, Apolonio ezarri zuen Koele-Siria **eskualdeko** gobernari. Elizen arteko biblia

Berehala, ohore handiz eta erregalo ederrez bete zuen erregeak Daniel; Babilonia **eskualdeko** gobernari egin zuen eta erreinuko jakitun guztien buru goren. Elizen arteko biblia

See Mike... Duela sei urte, Wyomingeko mendi urdinen maldan dagoen Dinosaur Land **eskualdeko** Roosevelt Utah aldean ene lehen rattlesnake bat eho nian. Itxaro Borda

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Eskualde antzua da Obi ibaiaren eskuinetik ekialdera zabaltzen dena, lur elkorrak Saian mendietatik iparrera ateratzen den gailur segidaren oinetara iritsi artekoak. Karlos Zabala

Giza animalia **eskualde** epeletan garatu zen: ile-larruaren beharrik ez zen lekuan. Irene Aldasoro

Eskualde hotzetan, hegoaldetik urrun geratzen diren lekuetan, beroak ez du inoiz hezetasuna erabat xurgatzen. Santiago Iruretagoiena

Garapen-bideko zenbait herrialderen industrializazio lasterrak eragin duen hirugarren munduaren zatiketaren ondorioz, lau **eskualde** handitara murriztu da espazio periferikoa: Saharaz hegoaldeko Afrika, arabiar mundua, Erdialdeko Asia eta Hegoaldeko Asia. Koro Navarro

Garapen-bidean zeuden gainerako **eskualde** handietan, oso urriak ziren oraindik industria-ondasunak eta azpiegitura ekonomikoak. Koro Navarro

Mendi garaiez inguratutako **eskualde** txikia da Suitza, eta mendate luze eta gogorrik gabeko itzulia prestatzea ezinezkoa da Alpeen erresuman. Berria - Kirola

Zer esanik ere ez, **eskualde** industrializatu eta aurreratuetan bizi diren hizkuntza txikiena. Koldo Zuazo

Leipzig, **eskualde** jendegabea, Waterloo, han nekazariak altxatu ziren eta bataila haren sugarra piztu zuten. Lopez de Arana

Eskualde azpigaratuen industrializazioa. Joxe Austin Arrieta

1970eko hamarraldiaren bukaera arte, arabiar mundua eta Latino Amerika izan ziren ekonomiaren alorrean garapen-bideko bi **eskualderik** aurreratuenak. Koro Navarro

Eskualde periferikoen lehen industrializazio-saioak deskolonizazioaren ondorengoak dira. Koro Navarro

Egun-argitik gauerako bitartea ez da izaten ordu erdi baino gutxiagokoa, ezta **eskualde** tropikaletan ere. Irene Aldasoro

Eskualde turistikoa denetz, urtean 39 igandetan zabaltzeko eskubidea lortu dute saltegiek. Berria - Ekonomia

Mendixka baten kaskoan, kurutze handi bat urreztatua... Bavarian bide gara; han hemenka eliza dorreak: **eskualde** katolikoa da. Marzel Etxehandi

Eskualde neutraltzat hartzen ziren beti oasiak, emakumezkoak eta haurrak bizi baitziren gehienbat horietan. Xabier Aranburu

Herrian eta **eskualde** osoan bizi ginen etorkinok fabrika guztietan langileen gehiengoa osatzen genuen eta partidu komunistaren inguruan egituratuta geunden. Jon Maia

Iion, Dan, Abel-Bet-Maaka, Kinereteko **eskualde** osoa eta, gainera, Neftaliren **eskualde** osoa hondatu zituzten. Elizen arteko biblia

Asierren eta Ibairen ezaguna da, **eskualde** berekoa edo. Aingeru Epaltza

Zaldiak eta zaldizkoak ezin ihes egin **eskualde** zingiratsu horren bazter guztiak betetzen dituzten intsektu dipteroen ziztadei. Karlos Zabala

Eskualderik behartsuenetan mirariz bezala atera liteke bizirik neskatxa bat. Gotzon Garate

Eskualde bereko herrialdeen arteko alderaketak egiterakoan, nekez esan daiteke betidanik beregain izan direnak kolonia izan direnak baino hobeto daudenik (Malaysia eta Thailandia, Indonesia eta Birmania, Etiopia eta Liberia, edota Nigeria eta Kenia aldera ditzagun, kasu). Iñaki Heras

Haradrimdarren lurretara zurrumurruak besterik ez ziren heldu urruneko **eskualdeetatik**: Gondorren amorruaren eta izuaren zurrumurruak. Agustin Otsoa

Ikarazko **eskualde** hartara iritsita, gure doluzko zama zurezko euskarrien gainean ipini ondoren, hilkutxaren tapa artean ireki gabea apur bat zabaldu, eta han etzanda zegoenaren aurpegiari begiratu genion. Koro Navarro

Asiaren erdialdeko **eskualdeetatik** datozenek, hain bidaia luzea eta neketsua burutu ondoren, ez lukete inola ere gaizki ikusiko Asiako muga pasa eta aurkitzen duten lehen

hiri europarra hobeki hornitua egotea. Karlos Zabala

Garapen-bideko **eskualdeen** industria-gorakada horri, munduko ekoizpenean duten ehuneko globalaren gorakada ikusgarrian antzematen zaio. Koro Navarro

Handik urrutiago gailurren **eskualdea** dago, eta oraindik urrutiago amildegien **eskualdea**. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **erregional**.

Eskualde-eskolako zuzendari batek ematen duen beldurrari, Howellesen mamuak beste herri bateko nekazariak berez duen misterioari zerbait eransten dio. Xabier Olarra

1998an, Bretainiako **Eskualde** Kontseiluan ia aho batez lurralde batasunaren alde bozkatu zuen. Berria - Mundua

Valentzia-Bartzelona errepide nazionalaren 24. kilometrotik 103 **eskualde**-errepidearen 19. kilometroraino, tarte horretan bakarrik ezagutu nuen Anuchka. Bernardo Atxaga

Elkarrekin bazkaltzen egon zirenean hark paperezko zapi batean berarentzat nolanahi idatzitako zenbakia markatu zuenean -Filadelfiako **eskualde**-kodea zeukan-, ahots mekaniko batek jakinarazi zion zenbaki hura ez zela jada existitzen. Oskar Arana

Ondoren hamar digituko zenbaki bat, 917 **eskualde**-zenbakiarekin hasten zena. Oskar Arana

Prozesu hori eten daiteke, egia da, eta **eskualde**-mailara mugaturik geratu, Triadako hiru ardatzen artean krisi handiren bat gertatzen bada. Koro Navarro

Eskualde mailako erakunde bateratzaileen eraketa. Koro Navarro

Eskualde-integrazioaren dinamika, merkataritza-trukeak zirela-eta lehen aipatu dena, eskualde arteko inbertsioen fluxu horietan oinarritzen da batez ere. Koro Navarro

Ekialde Urrunaren ondoren, Hegoaldeko Asiarenak dira **eskualde**-emaitza ekonomiko hoberenak (%6,7). Koro Navarro

Egia bada, Julien Savaryk dioen bezala 1991, estrategia global oro ez dela nahitaez mundu mailakoa, **eskualde**-estrategien nagusitasunak ez du ezkutatu behar ugaltzen ari direla gaur jatorriz eskualde desberdinekoak diren enpresen arteko itunen sareak. Koro Navarro

Ikusmolde honetatik, oso bestelako dimentsioa hartzen du enpresa multinazionalen jardueren **eskualde**-polarizazioaren fenomenoak. Koro Navarro

Eskualde-ferien zikloa (Champagneko feriak ziren famatuenak), XII. mendean azaldu zen. Koro Navarro

Ekoizpenen eta trukeen hirugarren **eskualde**-ardatza sortu da, Ekialde Urrunaren osotasunera zabaltzera jotzen duena. Koro Navarro

1998an, hiru ardatz horien **eskualde**-barneko trukeek gai manufakturatuen munduko merkataritzaren erdia baino gehiago osatzen zuten, eta hiru ardatzen arteko trukea, berriz, %30 zen. Koro Navarro

Eskualde bakoitzaren ezaugarri bereziek agertzen dute **eskualde**-eremu horiek munduko ekonomian txertatzeko duten modua. Koro Navarro

Nazioak berak, globalizaziorako joeren mehatxupean egon arren, eta **eskualde** multzo zabalagoetan txertatzeko gogoz zenbaitetan, funtsezko lekua betetzen jarraitzen du gaur egun munduko ekonomian. Koro Navarro

Kontuan hartuz **eskualde**-motaren ezaugarriak eta klima bakoitzaren bereizgarriak. Santiago Iruretagoiena

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nekazari-**eskualdeetako** bizimodua beti izan da elkarren aurka azpikerietan ari diren auzokideen istorioa. Oskar Arana

Gure txoferrak, baserri-**eskualderen** batekoa zatekeen-eta, ezagutzen ez jendeak aipatzen zizkion kaleen izenak. Joxe Austin Arrieta

Nafarroa, Errioxa, Kastilla: Espainiako ipar **eskualdea** polliki polliki urratzen ari naiz, urratsez urrats. Piarres Aintziart

Galdetu nion zelan zekizkien hainbeste hizkuntza eta kontatu zidan jatorriz Goi-**Eskualdekoa** zela, eta handik hungariarrengandik -bere hitzetan "hungariar okupaziotik"- ihes egin zuela familia osoak. Urtzi Urrutikoetxea

Ekonomia-**eskualdeen** muga politikoak alde batera utzita, Herbehereak, Ingalaterrako hego eta ekialdea eta Frantziako iparraldea har daitezke sistemaren zentrotzat 1600 urte inguruan. Koro Navarro

6 irud/hed

Behiaren usaimen-**eskualdeak** A bitamina eta harekin erlazionaturiko konposatuak zituela aurkitu zuten Zeelanda Berriko bi zientzialarik. Irene Aldasoro

Proteina erregulatzaileek, gene horien emaitzek, badute, guztiek ere, beren egituretan, hurbileko gene baten jarduna gobernatzen duen ADN-**eskualde** bat espezifikoki ezagutzeko gai den eremu bat. Juan Garzia

Halako batean lortu zelarik, Jean Dausset-en lantaldeari esker batik bat, HLA histokonpatibilitate-antigeneak bere baitan biltzen dituen kromosoma-**eskualdea** aztertzea, ikusi zen nola, HLA geneen konbinazio jakin batzuk zeramatzaten banakoak beste batzuk baino errazago jotzen zituen eritasun batek edo besteak. Juan Garzia

7 ***eskualdeko*** *izond* eskualdeari dagokiona.

Hirugarren joera handia, zentro-periferiaren arteko harremanak **eskualdeko** bihurtzeari dagokio. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

akitaniako eskualde (6); **baita eskualde** (5); **bat eskualde** (4); **bere eskualde** (5); **bertze eskualde** (5); **beste eskualde** (37); **beste eskualde batean** (4); **beste eskualde batzuetan** (10); **beste eskualde batzuetara** (4); **bi eskualde** (19); **bi eskualde horietako** (4); **bizkaiko eskualde** (5); **bretainiako eskualde** (16); **bretainiako eskualde kontseiluak** (7); **bretainiako eskualde kontseiluko** (4); **da eskualde** (14); **dago eskualde** (5); **dagoen eskualde** (4); **daukan eskualde** (4); **dela eskualde** (5); **den eskualde** (20); **dira eskualde** (10); **direla eskualde** (4); **diren eskualde** (10); **ditu eskualde** (4); **dituzte eskualde** (5); **du eskualde** (8); **duen eskualde** (8); **dute eskualde** (5); **edo eskualde** (17); **egunotan eskualde** (4); **ere eskualde** (12); **erreinuko eskualde** (4)

eskualde askotan (12); **eskualde bakoitzak** (6); **eskualde bakoitzak bere** (4); **eskualde bakoitzaren** (6); **eskualde bakoitzean** (13); **eskualde bakoitzeko** (12); **eskualde bat** (43); **eskualde bat da** (4); **eskualde batean** (37); **eskualde bateko** (8); **eskualde baten** (9); **eskualde batetarat** (5); **eskualde batetik** (10); **eskualde batzordeak** (4); **eskualde batzuek** (4); **eskualde batzuetan** (42); **eskualde batzuetan ere** (6); **eskualde batzuetara** (5); **eskualde batzuk** (4); **eskualde berean** (10); **eskualde edo** (9); **eskualde eta** (46); **eskualde eta gutxiengo** (4); **eskualde eta herri** (4); **eskualde frangotan** (4); **eskualde gehienetan** (5); **eskualde gisa** (7); **eskualde guzian** (5); **eskualde guzietan** (4); **eskualde guzietarat** (7); **eskualde guzietarik** (15); **eskualde guztia** (6); **eskualde guztian** (8); **eskualde guztien** (5); **eskualde guztietako** (13); **eskualde guztietan** (37); **eskualde guztietara** (5); **eskualde haietan** (5); **eskualde hartako** (31); **eskualde hartan** (34); **eskualde hartara** (5); **eskualde hau** (21); **eskualde hauek** (6); **eskualde hauetako** (5); **eskualde hauetan** (5); **eskualde hauteskundeak** (12); **eskualde hauteskundeetan** (11); **eskualde hauteskundeetarako** (9); **eskualde hizkuntzak** (6); **eskualde honek** (4); **eskualde honetako** (17); **eskualde honetan** (25); **eskualde hori** (21); **eskualde horiek** (10); **eskualde horietako** (11); **eskualde horietan** (15); **eskualde horrek** (4); **eskualde horren** (5); **eskualde horretako** (14); **eskualde horretan** (41); **eskualde hortako** (28); **eskualde hortan** (32); **eskualde hortarik** (52); **eskualde hortarik ere** (7); **eskualde hotako** (7); **eskualde hotan** (15); **eskualde hotarat** (11); **eskualde huntako** (20); **eskualde huntan** (8); **eskualde hura** (9); **eskualde jakin** (11); **eskualde kontseilari** (7); **eskualde kontseilua** (5); **eskualde kontseiluak** (18); **eskualde kontseiluko** (12); **eskualde kontseilurako** (4); **eskualde mailako** (11); **eskualde mailan** (4); **eskualde orotan** (4); **eskualde oso** (7); **eskualde osoa** (17); **eskualde osoak** (4); **eskualde osoan** (15)

eskualdez eskualde (4); **eta eskualde** (121); **eta eskualde guztien** (4); **eta eskualde guztietan** (4); **eta eskualde hartako** (5); **eta eskualde hortako** (4); **eta eskualde hortarik** (4); **eta eskualde kontseilari** (4); **europako eskualde** (6); **euskal herriko eskualde** (9); **frantziako eskualde** (12); **gure eskualde** (31); **gure eskualde hotan** (14); **hainbat eskualde** (5); **halako eskualde** (4); **hegoaldeko eskualde** (5); **herri edo eskualde** (7); **herri eta eskualde** (5); **herrialdeko eskualde** (4); **herriko eskualde** (9); **hori eskualde** (4); **horretan eskualde** (4); **indiako eskualde** (4); **inguruko eskualde** (4); **iparraldeko eskualde** (9); **izan da eskualde** (4); **lau eskualde** (4); **munduko eskualde** (13); **munduko eskualde guztietan** (4); **zegoen eskualde** (5); **zen eskualde** (10); **ziren eskualde** (11); **zuen eskualde** (12); **zuten eskualde** (5)

aceh eskualdean (8); **al anbar eskualdean** (16); **anbar eskualdean** (16); **artibai eskualdean** (6); **bere eskualdean** (9); **beren eskualdean** (4); **bi eskualdeak** (4); **da eskualdean** (5); **dagoen eskualdea** (5); **darfur eskualdean** (24); **den eskualdean** (5); **diren eskualdeak** (4); **duen eskualdea** (7); **ekialdeko eskualdean** (6); **eskualdea da** (9); **eskualdea eta** (15); **eskualdeak eta** (8); **eskualdeak ez** (4); **eskualdean beste** (8); **eskualdean bi** (5); **eskualdean bizi** (19); **eskualdean bizi ziren** (4); **eskualdean dago** (6); **eskualdean dagoen** (9); **eskualdean egin** (5); **eskualdean ere** (17); **eskualdean eta** (17); **eskualdean ez** (6); **eskualdean gertatzen** (5); **eskualdean hiru** (4); **eskualdean izan** (12); **eskualdean izan zen** (7); **eskualdean izandako** (7); **eskualdean segurik** (4); **eta eskualdea** (7); **eta eskualdeak** (8); **eta eskualdean** (6); **eta eskualdearen** (4); **gaza eskualdean** (7); **gazako eskualdea** (7); **gazako eskualdean** (11); **goxen eskualdean** (9); **gure eskualdea** (12); **gure eskualdeak** (4); **gure eskualdean** (74); **gure eskualdean ere** (9); **gure eskualdean segurik** (4); **gure eskualdeari** (4); **izeneko eskualdean** (5); **kandahar eskualdean** (8); **lea artibai eskualdean** (6); **samarra eskualdean** (4); **siirt eskualdean** (4); **zabul eskualdean** (4); **zuen eskualdean** (5)

batasuneko eskualdeen (4); **beste eskualdeetako** (4); **beste eskualdeetan** (14); **beste eskualdeetara** (6); **bi eskualdeetako** (4); **bideko eskualdeen** (4); **dauden eskualdeek** (4); **dauden eskualdeetan** (7); **den eskualdeetan** (4); **diren eskualdeetan** (11); **duten eskualdeetan** (4); **erdialdeko eskualdeetan** (4); **eskualdeek europako** (4); **eskualdeen arabera** (4); **eskualdeen artean** (9); **eskualdeen arteko** (25); **eskualdeen batzordean** (5); **eskualdeen batzordeko** (5); **eskualdeen batzordeko presidentea** (4); **eskualdeen elkartasuna** (4); **eskualdeen elkartasuna rps** (4); **eskualdeen eta** (4); **eskualdeetako gobernariei** (5); **eskualdeetako gobernariei eta** (4); **eskualdeetako lantaldea** (4); **eskualdeetan barrena** (5); **eskualdeetan bizi** (4); **eskualdeetan ere** (10); **eskualdeetan eta** (4); **eta eskualdeek** (11); **eta eskualdeen** (19); **eta eskualdeen arteko** (4); **eta eskualdeen elkartasuna** (4); **eta eskualdeetako** (15); **eta eskualdeetan** (4); **europako batasuneko eskualdeen** (4); **europako eskualdeen** (6); **europako eskualdeen batzordeko** (4); **gainerako eskualdeetan** (6); **garapen bideko eskualdeen** (4); **gure eskualdeetan** (4); **hegoaldeko eskualdeetan** (5); **herrien eta eskualdeen** (4); **hogeita zazpi eskualdeetako** (6); **mendebaldeko eskualdeetan** (6); **zazpi eskualdeetako** (6)

ainitz eskualdetan (9); **akitania eskualdeko** (4); **anbar eskualdeko** (5); **armada gazako eskualdetik** (4); **babilonia eskualdeko** (4); **bere eskualdeko** (7); **beste eskualdetan** (4); **bi eskualdetan** (7); **da eskualdeko** (8); **dagoen darfur eskualdeko** (6); **darfur eskualdeko** (15); **darfur eskualdera** (6); **den eskualdetan** (4); **diren eskualdetan** (8); **edo eskualdeko** (5); **eskualdeko agintariek** (7); **eskualdeko batua** (9); **eskualdeko beste** (14); **eskualdeko egoera** (4); **eskualdeko eta** (6); **eskualdeko euskalkian** (4); **eskualdeko gobernadore** (7); **eskualdeko gobernadoreak** (4); **eskualdeko hainbat** (7); **eskualdeko herri** (13); **eskualdeko herritarrek** (4); **eskualdeko hiriburua** (4); **eskualdeko hiru** (4); **eskualdeko hizkuntza** (5); **eskualdeko hizkuntzetan** (4); **eskualdeko hizkuntzetan argitaratzen** (4); **eskualdeko ofizialen** (8); **eskualdeko zuzendaritzaren** (5); **eskualdekoa da** (4); **eskualdera joan** (5); **eskualdetan behin** (4); **eskualdetan ere** (8); **eskualdetan eta** (5); **eskualdetan ez** (4); **eskualdetik erretiratzeko** (4); **eskualdez eskualde** (4); **eta eskualdeko** (56); **eta eskualdeko beste** (4); **eta eskualdeko hizkuntzetan** (4); **eta eskualdetako** (4); **eta eskualdetan** (4);

gaza eskualdeko (11); **gaza eskualdetik** (4); **gazako eskualdetik** (7); **gure eskualdeko** (22); **gure eskualdetan** (24); **gure eskualdetan behin** (4); **gure eskualdetik** (6); **hainbat eskualdetan** (23); **hiru eskualdetan** (4); **hitza eskualdeko** (4); **lau eskualdetan** (6); **urriko eta eskualdeko** (6); **zen eskualdeko** (7); **zenbait eskualdek** (5); **zenbait eskualdetan** (22); **zuen eskualdeko** (5)

---

eskualdeburu 1 *iz* eskualde baten burua.

Bere erreinuan ehun eta hogei **eskualdeburu** jartzea erabaki zuen Dariok, eskualde bakoitzean ordezkari bat izateko. Elizen arteko biblia

Eskualdeburu haiek, nork berari zegokion hilabetean, Salomon erregea eta honen mahai kideak hornitzen zituzten, ezeren faltarik izan ez zezaten. Elizen arteko biblia

Eskualdeburuen arduradun: Azarias, Natanen semea; erregearen aholkulari: Zabud apaiza, Natanen semea. Elizen arteko biblia

2 (izenondo gisa)

Mendebalean, bestalde, euskara gaietan hiriburuen lehiarik izan ez denez, handiagoa gertatu da herri **eskualdeburuen** eragina. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskualdeburuen laguntzaile (4)

---

eskualdeka 1 *adlag* eskualdeen arabera.

Zazpi greba deialdi egin zituzten, horietako sei **eskualdeka** egiteko, eta azkena, apirilaren 22an, arlo guztian 24 orduko greba orokorra egiteko.2005eko urtarrilaren 17a. Berria - Harian

Elkarte hunek antolatzen ditu **eskualdeka** bilkurak. Herria

Erien asurantza sistema ez da batere berdina hegoaldean, han dena **eskualdeka** antolatua da. "Euskararentzat jauzi bat" deitu 70 liberako parteak salgai ezarriak dituzte, bestalde, burrasoak **eskualdeka** antolatzen plantatuak dira leku desberdinetan diru piska bat ekarriko duten ekitaldiak muntatzeko. Herria

Konstituzioak **eskualdeka** finkatzen du atzerri merkataritza eta Koroako kideek ez lukete adierazpen politikorik egin beharko. Berria - Mundua

Taldeak muntatzen dira **eskualdeka**, bakotxa 15 bat kidez osaturik, gizon eta emazte. Herria

Gobernuak azken hilabete hotan agertu xedeak berme, botere gehiagonahi diote utzi **eskualdeka** eraiki lurraldeeri bai eta departamendueri. Herria

Eskualdeka eta herrika batzar irekiak egingo dituzte, herritarren informazioa jaso dezaten. Berria - Euskal Herria

Bera ematen da zatika, **eskualdeka** eta mailaka. Xabier Arregi

Kondarrean, ohar txikia: hemen jaso duguna, gertatzekotan, ez omen da asteazken goizean agituko Eurasia osoan, pittinka eta **eskualdeka** baizik. Edorta Agirre

2 ***eskualdekako*** *izlag*

Mugerzak dio Alacanteko Almendroen Zelaiko kontzentzazio eremuan **eskualdekako** taldeak osatu zituztela. Jokin Urain

III. taulan, **eskualdekako** ardatz handien arabera sailkatu dira gai manufakturatuen mundu mailako trukeak: Ipar Amerika (Estatu Batuak, Kanada eta Mexiko), Europa Mendebaldea, eta Japonia, Ozeania eta garapen-bidean dagoen Asia. Koro Navarro

Eskualdekako antolaketa sistema berritu du, baina «sektorekakoa egokitu behar du». Berria - Ekonomia

Udarako erabakita izan nahi du **eskualdekako** proportzioen kopurua. Berria - Euskal Herria

Aurreneko joera nazioarteko merkataritzaren **eskualdekako** polarizazioari dagokio. Koro Navarro

Eskualdekako lehen greba egin zuten, Bizkaiko hainbat osasun etxetan. Berria - Harian

---

eskualdekatze *iz* eskualdeka zatitzea.

Bozgune berri horiek arimarik gabekoak dira, nortasunik gabekoak, bainan **eskualdekatze** hori, okerra bada okerra, askori etzaiote naski hain txarra, Frantzia osoa dena bozgune bakar izaitea baino egokiagoko gauza zernahi gisaz...! Herria

Frantziaren **eskualdekatzeari** buruz Raffarin lehen ministro berriak abiatu solas eta xedeak aski begi onez hartu bazituen ere Eusko Alkartasuna-iparralde-k,Salisen eta Bordelen Euskal Herri departamenduaren obratzeaz ukan ditugun arrapostu edo erantzunak ordea aski etsigarriak dira ororen buru. Herria

Orain, noiz nahi, jalgitzen da jendea karriketara zerbaiten aldarrikatzeko: diru beharra, zergen kontra, erretretak, **eskualdekatzea** eta abar. Herria

---

eskualdekatzelari *iz* eskualdekatzen duena.

Oihanetik jalgiko zaizkio LUR ZAINAK, bapatean: SAFER, ELB, Euskal Herriko Berdeak, eskuineko, erdiko eta ezkerreko Euskal Herriko alderdi politikoak, abertzaleak, **eskualdekatzelariak** eta azkenean, azen ontzeko, kazetari, albistari eta berriketariak, asturu apur batekin... telebista! Herria

---

eskualdi *iz* 1 eragiketa bera errepikatuz egiten diren eskulanetan, eragiketa horietako bakoitza.

Eman zioten gizonek atzeneko **eskualdia** zirkuari, eta igandean, jendea bezperetatik ateratzen ari zen unean, atzetik agurea zuela, hezlea azaldu zen Urbiako plazan, elizaren aurrean. Koro Navarro

Dirurik ez izanez langileen ordaintzeko, laguntzaileek **eskualdi** bat emaiten zuten eta zenbaitzuk segitu dugu. Menane Oxandabaratz

Dudley hanka-zabalik begira eta izozkia jaten ari zen bitartean, Harryk leihoak garbitu zituen, belarra ebaki, automobila garbitu, lorategia txukundu, arrosak kimatu eta ureztatu, eta pintura-**eskualdi** bat eman zion lorategiko aulkiari. Iñaki Mendiguren

2 karta jokoetan, emanaldi bakoitza.

Kapilauak oparitzen zizkigun otoitzerako estanpekin eginiko baraja atera zuen Sagarduik betiko moduan, eta **eskualdi** batzuk egin genituen, berba nork askatuko. Koldo Izagirre

---

eskualdun ik **euskaldun**.

---

eskualgintza ik **euskalgintza**.

---

eskualtzale ik **euskaltzale**.

---

eskuantza *iz* trebetasuna.

Hortarako **eskuantza** handia bazaukan. Herria

eskuara ik **euskara**.

eskuaratu ik **euskaratu**.

eskuare *(orobat **eskobara** g.er.) iz* nekazarien lanabesa, amar edo hamabi hortz dituen zurezko haga batek eta hari zut jositako gider batek osatua. ik **arrastelu**.

Txoko batean, hormaren kontra bermaturik, bizpahiru **eskuare** zeuden; pixka bat harantzago, laiak eta aitzurrak; eta, honantzago, alboko askaren parean, luzera bateko zein besteko makila bilduma bat. Josetxo Azkona

Janari-etxean, lastoa ta belar ondua ugari, sabaian; atxur, **eskuare**, sarde, txardango, golde, periki, besabe, gurdi, gurtesi, orrazi, kabila ta uztarriak lur gainean. Xabier Mendiguren Elizegi

Orria pasatzean, **eskuare** edo belarra ebakitzeko baten irudia bilatzeko bere lanak eten egin ziren. Anton Garikano

-Azpildar maiteok -esan zuen-: Azpil herri atzeratua da, pobrea, eta zuen aitzur, **eskuare** eta lan-tresna guztiak atzeratuak geratu zaizkizue. Joan Mari Irigoien

Eskuarea eta erratza ere badakartza sorbaldan, trapu zuri batekin batera. Harkaitz Cano

Pala eta **eskuarea** beharko genituzke. Itziar Otegi

Metak egiten dihardute leku malkartsuan, eta lau mika zuri-beltz inguratzen zaizkie **eskuarea** erabiltzen duten bakoitzean, ea zizare edo bareren bat harrotzen duten ikustera. Hasier Etxeberria

Eskuareaz kolpatu, lepoa bihurritu eta saskira bota behar haiek ere. Harkaitz Cano

Hura segan eta ni **eskuarearekin**. Joxean Sagaztizabal

Ez **eskuarearen** kirtenak, ez bihurkinak, ez mailuak eta ziriak, ezerk ere ez. Oskar Arana

Hala, bada, burua galtzen hasi zen iparrorratzaren eta astrolabioaren artean, nahastuz oihaleria eta artilleria, mesana eta tisana, bela-zurruna eta bela-tutua, karonada-argiak eta kanoi-argiak, eskotila eta **eskobara**, kargatzeko aginduz largatzeko partez. Juan Garzia

eskuaretu, eskuare(tu), eskuaretzen du *ad* eskuareaz jaso edo bildu; *irud/hed*

Oso itxura utzia zuen Cesarrek ordurako, ile matazak lehor eta korapilatuak zituen, batere zaindu gabe, gero eta nekezago lortzen zuen korapilo haiek **eskuaretu** eta orraztea. Harkaitz Cano

Ingurua begiradaz **eskuaretu** arren, ez du bere hilotza ikusi. Harkaitz Cano

Eguzkitako betaurrekoak kopetara altxatu eta inguru guztia **eskuaretu** zuen begiradaz. Harkaitz Cano

Dena errepide kontrolez josi dute eta zenbait auzo etxez etxe ari dira **eskuaretzen**. Harkaitz Cano

eskuargi *iz* esku-argia. ik **esku 2**.

Eskuargia piztean, Tom ikusi dut esku minberari gora eta behera eraginez. Patxi Zubizarreta

Evans jaunak **eskuargia** itzali zuen. Koro Navarro

Peter, **eskuargi** bat hartu eta ganbarara igo zen. Josu Zabaleta

Eskuargia noratu nion. Aingeru Epaltza

Eskuargi bat eta esprai-pote bat erosi nituen mimoaren plazatik Udal Museorainoko bidean. Anjel Lertxundi

Ekimen hori baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa izango da, gainera, foru-erakunde **eskudunaren** erabakia referendumaren bidez berrestea. Askoren artean

Ekimenak aurrera egiten ez badu, hori ezin izango da errepikatu foru-erakunde **eskudunaren** agintaldi berean. Berria - Kultura

Maiatzaren 24an aurkeztu zuten testuari zuzenketak egin dizkiete Ameriketako Estatu Batuek eta Erresuma Batuak, hala nola Iraken AEBen zuzendaritzapean geratuko diren nazioarteko indarren egonaldiari epe bat finkatuz bozetan aukeratutako Gobernuak kargua hartzean, 2006ko urtarrilean eta herrialdeko Polizia eta Armadaren gaineko aginpidea Irakeko behin-behineko agintearen **eskuduntzat** emanda. Berria - Mundua

Zeren, animalia mota batzuk bakanago direla eta beste batzuetan, berriz, natura oparoago ageri dela badakusu ere, litekeena baita haiek, beste leku eta inguru batean, urruneko lurretan, oso ugariak izatea eta kopurua osatzea; lauhankakoen artean hau batez ere suge- **eskudun** elefanteetan dakusgu. Xabier Amuriza

Héraclius haserretuak esku hartu izan ez balu, Jainkoak daki zer litxarreriaz aseko ez ote zen lau **eskudun** Tantalo hura. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **foru erakunde eskudunaren** (4)

---

eskuduntza 1 *iz* ordenamendu juridiko batek organo bateko pertsona juridiko bati edo estatuaren administrazioko atal bati esleitzen dizkion funtzioen multzoa.

Euskal herritarrek erabakia hartzeko eskubidea dutela aitortu zuen, baina egungo arauen eta **eskuduntzen** arabera. Berria - Harian

Harrigarria bada ere, badirudi euskara Frantziako Atzerri Ministerioaren **eskuduntza** dela. Berria - Euskal Herria

Herrialde ezberdinetako epaileak borrokan ari dituk auziaren **eskuduntza** haiena den ustean, eta denek ditek arrazoi, hein batean. Harkaitz Cano

Ez dugu EBren edo Espainiaren inolako **eskuduntzarik** urratu. Berria - Ekonomia

Augusto salbuetsia izan zen askatasuna emateko **eskuduntza** mugatzen zuen legetik, eta legatzeko **eskuduntza** mugatzen zuenetik. Iñaki Iñurrieta

Nork, zein herrialdetako epaitegi madarikatuk izan lezake beraz auzi korapilatsu hau epaitzeko **eskuduntza**? Harkaitz Cano

Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusiak gogoratu zuenez, Eusko Jaurlaritzak ez ditu esku artean lan arloko **eskuduntzak**. Berria - Harian

Ikerkuntzaren gaineko **eskuduntza** Jaurlaritzari ematea eskatu zion Camposek. Berria - Harian

Guk mila milioi euro ordaintzen dizkiogu urtero Estatuari, beste herri batzuenganako elkartasuna bermatzeko, baina, aldi berean, filosofia izan beharko litzateke Estatuak bere esku dituen **eskuduntzetan** hemen inbertitzea. Berria - Ekonomia

«EBko estaturik gabeko nazioen **eskuduntzak**» aldarrikatu zituen Josu Erkiagak. Berria - Euskal Herria

Eskuratzeke dauden **eskuduntzak** negoziatzeaz gainera, Enpleguaren Mahaia osatu nahi du PSE-EEko lehendakarigaiak, enpleguaren arloan lan egiten duten erakundeak biltzeko eta bikoiztasunak ekiditeko. Berria - Harian

Euskaldunen eskubideak berberak dira, **eskuduntza** batena edo bestearena izan, eta Jaurlaritzaren ardura da hori Espainiako Gobernuari behin eta berriro gogoratzea. Berria - Harian

Zuzenbide-irakasleek **eskuduntzei** eta handiusteei buruz hitz egiten dutenean zuzenbide kontuetan zuzena denaz galdekizuna (quid iuris) egitatea ukitzen duen galdekizunetik (quid facti) bereizten dute. Ibon Uribarri

Autonomiak indarrean jarri ziren, **eskuduntzen** transferentzia egin behar zen, baina asko makaldu zen egiteko hori. Berria - Euskal Herria

Eskuduntzen banaketa, mendetasun hierarkikoa, osagarritasun funtzionala. Xabier Arregi

2 (izenondoekin)

Dekretuetako batek CIAko zuzendariari **eskuduntza** berriak emango dizkio; hark zerbitzu sekretu guztietako zuzendariaren funtzio ugari beteko ditu, Gobernuaren 14 espioitza erakundeekiko eskumena emanez. Berria - Mundua

Eskuduntza sozio-laboralak: Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio politika sozio-laboralen eta enplegu politiken esklusibitatea, berezko esparru sozio-laborala eratzeko. Berria - Euskal Herria

Arazo hori erakunde desberdinen **eskuduntza** ukiezinak dira. Berria - Kultura

EAJk gizarte babeserako politiken **eskuduntza** «esklusiboa» eskatu du. Berria - Euskal Herria

Badakigu euskal administrazioek ez dutela **eskuduntza** nahikorik alor honi dagokionez. Berria - Ekonomia

Lan Harremanen Euskal Esparruaz mintzo garenean, ez gara **eskuduntza** hutsez ari. Berria - Ekonomia

Estatutuaren arabera merkataritza arloan **eskuduntza** osoak ditugu. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Montesquie gogoratu zuen Benach-ek: «**Eskuduntza** banaketa beharrezkoa da lege tiranikoak egiteko tentazioa eduki eta martxan jartzea sahiesteko». Berria - Euskal Herria

Justizi **eskuduntza** gerrara eramateko **eskuduntzarekin** lotzen zuen arrazoietako bat zera zen, gerrara eramaten zuenak fiskoarekiko zamak ordainarazten zituela aldi berean. Iñaki Iñurrieta

Justizia Auzitegira jotzeko gaitasuna izan behar dugu Estatuen iragazkirik gabe, hauek fiskal, epaile eta parte direlako askotan **eskuduntza** arazoetan. Berria - Euskal Herria

Jaurlaritzaren egitasmoak EAEk berak dituen «**eskuduntza** hutsuneak bereganatu» dituela uste dute Bilguneko kideek. Berria - Euskal Herria

Arazoa euskal erakundeen **eskuduntza** falta da. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lege **eskuduntzak** dituzten eskualdeei parte-hartze politikoa ukatzen die. Berria - Euskal Herria

Ikerketa **eskuduntza** «Jaurlaritzari» dagokiola azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Botere politikoa eta sozio-ekonomikoaren arteko lokarri hertsiak geroz eta sendoagoak direlarik [...] ikuskaritza **eskuduntzak** lausotuz eta elkarrekin nahasiz doaz. Edorta Agirre

Kontseilua soilik kontsulta-organoa denez bertan aztertzen dena jorratu nahi dute, «nahi ala ez egun enplegu **eskuduntzak** Madrilek baititu. Berria - Ekonomia

5 irud/hed

Filosofiak, beraz, ez dauka axiomarik eta ezin ditu inoiz bere oinarri-esakuneak a priori horrela absolutuki agindu, baizik hauek erabiltzeko **eskuduntza** dedukzio zehatzaren bitartez legeztatzearekin ados egon behar du. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arloko eskuduntzak (3); **babeserako politiken eskuduntza** (3); **bere eskuduntzetan** (3); **dituen eskuduntza** (3); **dituen eskuduntzak** (3); **dituen eskuduntzetan** (3); **duen eskuduntza** (5); **emateko eskuduntza** (3); **eskuduntza batzuk** (5); **eskuduntza dela** (3); **eskuduntza esklusiboa** (5); **eskuduntza gehiago** (6); **eskuduntza guztiak** (5); **eskuduntza hori** (3); **eskuduntza lekualdaturik** (3); **eskuduntzak dituzten** (3); **eskuduntzak eta** (5); **eskuduntzak urratzen** (5); **eskuduntzak urratzen dituela** (4); **eskuduntzarik ez** (5); **eskuduntzen banaketa** (4); **gaineko eskuduntzak** (3); **politiken eskuduntza** (3); **politiken eskuduntza esklusiboa** (3)

---

eskuera **1** *iz* eskuduntza.

Epaitzeko **eskuera** Koloniako Artzapezpikuak izendaturiko Fraide Txikien Batzorde inkisitorialari ukatu ondoren, [...]. Joan Mari Lekuona

Alderantziz izan ohi da hau guztia letraduetan, beren bizigaia eskuratzen baitute, denek **eskuera** egokian, esku-luzeka ari gabe ere. Patxi Ezkiaga

2 *adlag* eskuaren irispidean.

Jakinarazten diat, Santxo, ohore izan dela zaldun ibiltariena, hilabete osoan jateke pasatzea, edota, jatekotan, **eskuera** daukaten hartatik jatea. Patxi Ezkiaga

Maila hau, hala ere, oso urruti dago goieneko hartatik, oraindik sentiberatasunaren **eskuera** geratzen denez. Joan Mari Lekuona

3 ***eskueran*** eskumenean.

Orain artean beti **eskueran** izan ditudan liburuak, ez nik soilik, erabiltzaile guztiek baizik, ja ez dauzkat hala: hegan egin dutela dirudite, goiko apaletara. Berria - Kultura

Neure jenio erasokorrak bultzaturik, **eskueran** zegoen edozer jaurtitzen nuen, amorratuz gero. Begiespenaren **eskueran** ez dagoen gainerako horri *noumeno* deitzen zaio. Xabier Olarra

Ehizarako ere, **eskueran** arkurik edo baleztarik ez bazen, ehiztariak hartzaren besoetara, oreinaren adarretara edota basurdearen hortzetara hurbildu beharra zeukan. Jon Alonso

Aukeratzea hautatzea da, hau da, **eskueran** ditugun aukera guztien artetik bat edo batzuk hartzea, gainerakoak alde batera utzita. Iñaki Arranz

Jabearen arrastorik ez zegoela ikusiz gero, itsumustuan hartzen zuen **eskueran** zuen guztia. Jose Morales

Intsektu horiek guztiak **eskueran** jartzea Kreatzaileak Bere kreaturen bizitzaz arduratzean erakusten duen eskuzabaltasunaren seinale adierazgarritzat daukat. Xabier Olarra

Asmaketa horrek ariketa osasungarria jartzen zion **eskueran** iheslariari, eta besteei, berriz, ehizaren plazerrez gozatzeko aukera ematen zien. Xabier Olarra

Ilobak errukituta ogi xerrak gurinarekin igurtzita uzten zizkion **eskueran**. Pablo Sastre

Piperrautsa hurbil bazeukan, piperrautsa botatzen zuen; **eskueran** aza edukiz gero, aza lapikora, edo esnea. Jose Morales

Eskueran da, halaber, museoetan, gizakia behe-mailako animalietatik bereizteko balio duen jakin-min arrunta bazkatzeko. Xabier Olarra

Horrexegatik zegoen, **eskueran**, gurera etorri eta gu zaintzen hasteko. Mirentxu Larrañaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskueran ditugun (3); **eskueran izan** (4)

---

eskuerakutsi **1** *iz goi* oparia.

Etortzen zirenek nork bere **eskuerakutsia** ekarri ohi zion: zilarrezko nahiz urrezko gauzak, janzkiak, armak, usaingarriak, zaldiak, mandoak.

Azkenik urrea, magoen hirugarren **eskuerakutsia**. Joan Mari Lekuona

Begiko banauzu, har itzazu nire **eskuerakutsi** hauek, zure aurrean aurkeztea Jainkoaren beraren aurrean aurkeztea bezala izan baita niretzat, eta zuk ongi bai ongi hartu bainauzu. Jose Antonio Mujika

Hartu **eskuerakutsi** hau -zuzendu zitzaion-, eta bihar ere etorri nire menturen jarraipena entzutera. Patxi Zubizarreta

Orduan, zu eta zure semeak erregearen adiskideetakoak izanen zarete, eta zilar, urre eta **eskuerakutsi** asko emanen dizue saritzat. Elizen arteko biblia

Hilabete osoa eztei-egun alaietan baileuden ospatu behar zuten, adiskideei eta behartsuei **eskuerakutsiak** bidaliz. Elizen arteko biblia

Bisirrak ere, ahoa bete hortz, onartu behar izan zuen halako **eskuerakutsia** zekarrenari begirunea zor zitzaiola, eta dena delakoa printzesaren duina zela. Patxi Zubizarreta

2 (adizlagun gisa)

Hona, zilarra eta urrea igortzen dizkizut **eskuerakutsi**. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elkarri eskuerakutsiak (4); **elkarri eskuerakutsiak bidaliz** (3); **eskuerakutsiak bidaliz** (4); **eskuerakutsiak eman** (3); **eta eskuerakutsi** (3); **eta eskuerakutsiak** (4)

eskuespen *iz* baimentzea, baimena ematea.

SAFER-ak bere **eskuespenaren** erabiltzea erabaki du hiru herritako saltzetan: Hazparnen, 24 hektaretako etxalde batean; Kanbon, 22 hektaretako etxalde batean; Bidarrain, 6 hektaretako etxalde batean. Herria

Laborariek galdegin diote SAFER-ari bere **eskuespen** eskubidea erabil dezan, lur horiek laborantxako geldi diten, Ainharbe-Etxebestenbordaren kasuan bezala. Herria

Uztailaren 21eko bilkuran, SAFER-ak baztertu du erabiltzera eskatua zitzaion **eskuespen** eskubidea. Herria

---

eskuetaratu, eskuetara(tu), eskuetaratzen **1** da/du *ad* eskuetara etorri edo ekarri, eskuetara eman.

Sumin hura gorabehera, nire gutuna **eskuetaratu** zitzaion haatik; eta haren jakinminari guztiz nagokio, gutuna oso-osorik artoski irakurriko zuela uste izateko. Jon Muñoz

Ia zakar batez **eskuetaratu** zidan kandela-. Alberto Ladron Arana

Mutilak ez zuen jatekorik onartu, baina trago handia eman zion **eskuetaratu** zioten zahatoari. Felipe Juaristi

Zer hartuko zuten galdegin zien Santosek, **eskuetaratu** berri zuen ardao edalontziak exijituta. Josu Landa

-Alferrik izango da orain bihotzari kontu egitea... -esan zuen, kartak bildu, eta ematea zegokionaren **eskuetaratzen** zituela. Inazio Mujika Iraola

-Hemen daukak -esan zidan horretan osaba Felipek, orrialde bakarreko paper bat **eskuetaratzen** zidalarik-. Txillardegi

Nola erdietsi eta nola **eskuetaratu** nuen nik neure libertate hura? Joan Mari Irigoien

Antoniok bere poltsan zeramatzan, izan ere, bere etxearen sal-erositik **eskuetaratu** diruak. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Hitzen bidez nahi baikenuke mundua -kanpokoa zein barrengoa- **eskuetaratu**, eta atzeman, honelatan, geure benetako izatasuna. Joan Mari Irigoien

---

eskufono *iz adkor*

Ez postarik iristen da, ez elektrikarik (sic!) eta ez telefonorik (**eskufonoak** ere ez balio ezleku haietan): kanpin-gasaren argi tristeak ozta hausten zuen ilunpe batean egon ginen berriketan. Iñaki Segurola

---

eskugabe *izond* eskurik ez duena.

Lurra ahalegindu zen hainbat munstro sortzen ere, aurpegi eta gorputzadar bitxiz eginak, hala nola androginoa, erdi gizon erdi andre, bien ezberdin, edo animalia behin hankagabeak, behin **eskugabeak**, baita aho gabeko mutuak ere. Xabier Amuriza

---

eskugain **1** *iz* eskuaren gainaldea.

Alkandoraren mahuka haiek jarraipena zutela iruditu zitzaion, eta bi **eskugain** erreparatu zituen urazalean, eta urpera begira zetzan buru garondo ilebustia ere ikus zitekeen bi esku hilen artean. Joseba Sarrionandia

Malkarrean gora eginik, elorri-arbola batek **eskugaina** zaurtu zidan. Juan Garzia

Eskulanik egin ez dutenena bezalakoxea zuen aitak **eskugaina**: handia, zuri-zuria, eta beraxka. Anjel Lertxundi

Mikelek **eskugainekin** igurtzi zituen begiak. Unai Iturriaga

Noraren aitak **eskugaina** pasatu zuen begietatik. Anjel Lertxundi

Giharraren higidura hartu du begian, **eskugainean**, eta handik gorputz osoaren zakura, hotzikara erregarria. Koldo Izagirre

Norak, lotsaz gorriturik, eskua eman zion, eta Andreas Pilniakek muin egin zion **eskugainean**. Anjel Lertxundi

Kokotseko ile grisak **eskugainaz** igurtzi eta bere lanparei ekin zien berriro. Lopez de Arana

-Suggs -esan zuen, ezpainak lehortuz **eskugainarekin**-. Anton Garikano

Gero musua garbitzen du, disimuluz, **eskugainarekin**, irri egiten duen bitartean. Alberto Barandiaren

Aurpegia erditik behera **eskugainekin** estali eta etenaldi bat egin zuen. Anton Garikano

Malkoak xukatu nituen **eskugainaz**. Koldo Izagirre

Ezpainak lehortu zituen gero **eskugainaz**. Anjel Lertxundi

2 *ipar* abantaila; soberakina; eskuduntza.

Eskuara baizik ez dakienak ez du asmatzen ahal, bertze edozoin mintzaien aldean zer **eskugaina** dagokan Eskuarak. Xipri Arbelbide

Baionako HLM sozietateak 1.420 000 Euro-ko **eskugaina** du urteko kontuetan. Herria

Hiru milioiko **eskugaina** atera du Angeluk jazko kontuetan. Herria

Bilana egiteko momentuan 250 euroko **eskugaina**, diruzaina kontent zorrik bederen ez zutela eta aurten berriz abiatzeko gogoa bizi bizirik zegoela. Herria

Gehiago xahutzea diru sartze gutiagorekin, hori ez baitu nornahik egiten! Zentroak 408 000 euro **eskugain** garbi atera du, bosgarren urtea segidan dirua irabazten duelarik. Herria

HERRIKOAk 74000 Euro **eskugain** deklaratzen ditu, jaz 58000 E galtze erakusten zituelarik. Herria

Edo behar da **eskugain** handia segurtatua bainan gobernua ez omen da batere hortan, jazko **eskugaina** jana eta aurten ez muntatua **eskugain** handirik, ekonomia sailean ere naski halako arraposkitze bat badela... Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskugain poxi** (5); **eskugain poxi bat** (3); **euro eskugain** (4)

---

eskugorri *izond* eskuak gorriak dituena.

-Behin bururatu zitzaidan Jack **Eskugorri** deitzea neure buruari -esan zuen, lotsati. Julen Gabiria

---

eskuhartu ik **esku 5**.

---

eskuhartzaile ik **esku 6**.

---

eskuhartze ik **esku 7**.

eskuhori *iz* belar landare lekaduna, hosto-konposatua eta lore-zuria, aziendak elikatzeko erabiltzen diren hazi minak ematen dituena *(Lupinus luteus).*

Orduan Kratesek, **eskuhoriz** erabat puzturik, haize batzuei jaregin zien bere dizipuluaren presentzian eta baieztatu zion gaitz beraren mendean zeuzkala naturak gizon guztiak. Juan Garzia

Eskuhori mordo bat jan, eta Metroklorengana joan zen. Juan Garzia

---

eskuhuska ik **esku 8**.

---

eskuhuskari ik **esku 9**.

---

eskuidatzi *(orobat **esku-idatzi**) iz* eskuz egindako idatzia.

Eskuidatziak, inprimakiak. Askoren artean

Esku-idatzi eta bertso-paperak izeneko atala da lehena, eta honako hauek datoz ondoren: 'Euskal Erria' eta beste zenbait aldizkari, 'El Cántabro' (1893) eta 'El Cántabro' (1894), lehen liburukian; [...]. Berria - Kultura

---

eskuila **1** *iz* garbitzeko tresna, euskarri eskutokidun batean itsasten diren ile, zurda edo kidekoen multzo batez osatua.

Eskuila eskuan harturik nagusiaren frak esekira hurbiltzen zen, edo zernahi txukuntzen hasten zen besterik gabe. Jose Morales

Ispiluko lurruna kendu eta, **eskuilaren** ordez, orrazi estua pasatu nuen iletik, korapiloen eta tirakaden ardurarik gabe. Anjel Lertxundi

Marisantz auzo lehenak bikotearen irudia ozkan jarri zuen: **eskuilaz** mutikoaren jantzia xahatu zuen, usain onez perdukatu eta neskatxaren matelan malinki haztuak ziren ile marrak zuzendu zituen. Itxaro Borda

Lincolnen estatua erraldoia garbitzen hasi da garbitzailea **eskuilarekin** eta xaboiarekin. Harkaitz Cano

Han itxura aldatu zuen eta txerri-ilezko **eskuilen** saltzailea zela esan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Suhiltzaileak eta udaltzainak barne, ia 400 langile ari dira, palak eta **eskuilak** hartuta, elurteari aurre egiteko lanean buru-belarri, Gasteizko Udalak koordinatuta. Berria - Harian

Bitartean Porfirik **eskuila** berezi batez igurtzi behar zion zilborra zakurkumeari, eta egunean hiru aldiz xaboiz garbitu. Jose Morales

2 (hitz elkartuetan)

Zutitu, eta, **ile-eskuila** bat harturik, orraztu eta orraztu aritu zitzaion Nora, harik eta Mathildek, ispiluari begira beti, ile guztiak inolako lotura eta korapilorik gabe laxatzen zitzaizkiola ikusirik, Norari aski zela adierazi zion arte. Anjel Lertxundi

Esekilekuan zebilen buru-belarri kapela- **eskuilaren** bila eta hotz eta motz erantzun zidan: [...]. Irene Aldasoro

Esekilekuan zebilen buru-belarri kapela- **eskuilaren** bila eta hotz eta motz erantzun zidan: [...]. Irene Aldasoro

Lan berri honetan, Nina Simone handia gogora ekartzeko gauza da zenbait unetan, aurreko diskoetako gitarra elektrikoei kontrabaxuak eta bateria **eskuilek** hartu diote lekukoa eta sekula baino argiago geratzen da. Berria - Kultura

3 ***hortzetako eskuila*** *(orobat **hortz eskuila** g.er.)* hortzak garbitzeko erabiltzen den eskuila.

Kolonia-uraren ontzia, lakrea, **hortzetako eskuila**. Jose Morales

Eskuizkribu bat ez da **hortzetako eskuila** erabili bat bezala botatzeko gauza. Ramon Saizarbitoria

Handik gutxira logelara itzuli zen, **hortzetako eskuila** ahoan zuelarik. Anjel Lertxundi

Gela aldera joan zen, **hortzetako eskuila** ahoan zuela. Fernando Morillo

Eskuizkribu bat ez da **hortzetako eskuila** erabili bat bezala botatzeko gauza: paper idatziari errespetua izaten zaio. Ramon Saizarbitoria

Haraxe joan ziren bizarra egiteko labana eta krema, talko hautsak, desodorantea eta **hortzetako eskuila**. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskuila bat (8); **eskuila eta** (8); **eta eskuila** (6); **eta eskuilak** (3); **hortz eskuila** (5); **hortzetako eskuila** (14); **ile eskuila** (3); **ile eskuila bat** (3)

---

eskuilatu, eskuila(tu), eskuilatzen du *ad* eskuilaz igurtziz garbitu.

Hortzak, oiak ahaztu gabe, behar den bezala goitik behera **eskuilatzen** ditut. Ramon Saizarbitoria

Lan bila hasi baino lehen, bizarra egin, ilea moztu, jantzia **eskuilatu** eta kendu baldar-itxura hori. Lopez de Arana

Denbora gutxi zuten arren, lebita **eskuilatzeko** agindu zuen. Jose Morales

On Camillo bere sotanarik onena janztera joan zen, zapatak garbitu, kapela arretaz **eskuilatu** eta, ahaleginak eginez korrika ez hasteko, poliki-poliki heldu zen herriko kale nagusiraino. Koldo Biguri

Lebita zaharra zeraman soinean, baina txukun-txukun **eskuilaturik**, bentzina-usainarekin eta galoi berriek zeharkaturik. Jose Morales

Lurrean belaunikatu eta halako indarrez hasten da alfonbra **eskuilatzen** non hautsezko hodei handi bat bihurtzen baita gela guztia. Josu Zabaleta

Big Joek elikatzen zuen txakurra, berak **eskuilatzen**. Mirentxu Larrañaga

Handik hurbil samar bi neska ari ziren, zaldun jantzian, zaldi bana **eskuilatzen**, ezertaz ohartu gabe edo ezertaz ohartu nahi izan gabe. Anjel Lertxundi

---

eskuilatxo *iz* eskuila txikia.

Misha, herriko emakumeek nola astintzen dute **eskuilatxoekin** gorputza, lurrin-bainua hartzen dutenean? Jose Morales

---

eskuin *iz* **1** so egilearen bihotzaz bestaldeko aldea. ant **ezker**.

Urrezko numero horren baitan goia eta behea, ezkerra eta **eskuina**, koadroaren alde guztiak elkartzen zituan, oreka baten barrenean beti ere eta koloreen kidetasunean. Joan Mari Irigoien

Eta ezkerra eta **eskuina** ez dira inoiz bat izaten, ezta futbolean ere -aurrera egin zuen amak, amonaren argudioan oinarriturik. Joan Mari Irigoien

Ez ote naiz, bada, ni Ninibe handiaz errukituko, non ehun eta hogei mila gizaki baino gehiago bizi diren, **eskuina** ezkerretik bereizten ez dakitenak, eta non ezin konta ahala abere dagoen? Jose Antonio Mujika

Arkupea ere, [...] mutur batetik bere luzera osoan ikusita, apurka-apurka konoaren punta zorrotzeraino estutzen da, sapaia zoruarekin eta **eskuina** ezkerrarekin elkarturik, konoaren mutur ilunean denak bat egin arte. Xabier Amuriza

Gure eraikinaren **eskuinean** Zaandam-eko Keg enpresaren eskumendeko bat dago, eta ezkerrean zurgindegi bat. Josu Zabaleta

-Hemendik dela uste dut -esan zuen Hermionek, **eskuinean** hutsik zegoen korridorera begiratuz. Iñaki Mendiguren

Urrungo edo hurbilagoko zentro horretatik erabakitzen da, adibidez, zer dagoen **eskuinean** eta zer ezkerrean, eta erabakitzen da ez diola axola urak nondik norako bidea egiten duen, baina bai zer gelditzen den hiriburutik **eskuinetara** eta zer ezkerretara. Iñaki Segurola

Beste kaleburuan, **eskuinetik**, azoka-gunea eta trenbidea sumatzen ziren. Txillardegi

Okamendiko Villafranca agertu zait, bai eta ere, hor berean, bide bazterrean, **eskuinetarik**, San Felices kaperaren absidea. Piarres Aintziart

Gure mugimenduak geldiak dira eta gure geldialdiak mugituak; guk ez dugu ez ipar ez hegorik, ez ekialde ez mendebalik; ibiltzen garenean ez dugu ez aurrera ez atzera jotzen, ez ezkerrera ez **eskuinera** egiten. Felipe Juaristi

Aurrera zihoazen bidez bide, marrumaka, ez ezkerrera, ez **eskuinera** saihestu gabe. farola birakari bat piztu berria zen ene **eskuinera**, ondoko lur-muturrean. Elizen arteko biblia

Bidez **eskuinera** baserri zahar baten teilatu zartatua ageri zen ezpondaren goialdean. Koldo Izagirre

Han, ezker-**eskuinera** errepideak bitan banatzen zuen Highgate-ko kanposantuaren burdin hesi beltzak ageri ziren. Ramon Saizarbitoria

Gaztelua iraganda Arando Aundi barrako bidea ezker utzirik **eskuinera** jo dute berrehun milioi urteko jakinduria omen daukaten iratzeetan barrena. Koldo Izagirre

Noiz jo **eskuinera**, noiz ezkerrera erakutsiko dizue. Elizen arteko biblia

Aurrez aurre ditu biak, Xereal egunkari atzeratuen pila ondoan, eta Xankapo **eskuinerago**, leihopean ia. Iñaki Iñurrieta

Bigarren kalea **eskuinetara** hartu eta lehenengo plazaren kantoiraino zoazte. Josu Zabaleta

Eskuinetara begiratuz, berriz, San Bizenteko elizako kanpandorrea ageri zitzaigun, puntta batean bakarrik. Txillardegi

Atariko bulegora sartzera nindoalarik, kamioi hori batek gurutzatu du **eskuinetara**, Valcorneja aldera. Txillardegi

Iluntasuna itsasoaren ur azaleraino iristen zenean Alcatraz uharteko argiak ikusten nituen **eskuinetara**, eta Golden Gate zubikoak ezkerretara. Bernardo Atxaga

Zerua urdina zen; itsasoa, **eskuinetara**, mugiezina, eguzkia, neure bizkarrean, urrikigabea. Matías Múgica

-Bista **eskuinetara**! -esan zuen Rayk-. Berria - Kultura

Hain zuzen ere, bakuometroaren orratza, hatz mehatxari baten gisa, zerorantz igoz zihoan ostera, eta, hara, gradurik gradu, **eskuinetarantz** makurtzen. Juan Garzia

Victoria, Joseba eta Susana besotik hartuta daude, zutik, ezkerretara; gero, erdian, eserita, Redin -monsieur Nestor- eta Cesar irakasleak; hurrena, **eskuineko** aldean, Adrian, bera ere eserita, eta ni neu bere atzean zutik. Bernardo Atxaga

Errepidearen **eskuineko** aldean, hartu behar nuen bidean, daude harri lauza batean Errolanen urratsen hatzak. Piarres Aintziart

Aaronen semeei ere, hurbilaraziz, **eskuineko** belarria eta eskuin eskuko eta eskuin oineko erpuruak odolaz igurtzi zizkien. Elizen arteko biblia

Aitzolen aurpegia zatorkidak gogora, dena maspildua, **eskuineko** begia hutsik, kaperan ikusi nuen moduan. Koldo Izagirre

Hala iruditzen zitzaidan niri behintzat eta nekez ken nezakeen hori burutik, bere **eskuineko** eskua arrotza zuela, besterena, txertatua-edo. Joxean Agirre

Eskuineko hanka atzean gelditzen zitzaion pausoa ematean. Bernardo Atxaga

Hitz egina zidan lehenak, **eskuineko** besotik heldua nindukanak, mendean hartu zuen noizbait xaribari hura guztia. Koldo Izagirre

Denbora alferrik galdu genuela biok sinetsirik, antza, Errobi ibai **eskuineko** jatetxe batean sartu ginen. Txillardegi

Ezkerreko motorra murrizten badut, **eskuineko** motorraren albo ekarmena berdindu beharko dut, hegazkinak ezkerrerantz joko baitu, jakina. Josu Zabaleta

Bere zapatak ere, desberdinak, normala **eskuinekoa** eta hiru bat zentimetroko zolarekin ezkerrekoa, urdin argiak ziren, oso politak. Bernardo Atxaga

Baina lokian eman zion, **eskuinekoan** -ehorzlea ezkerra delako, argitzen zuen guardia zibilak-. Ramon Saizarbitoria

Horman, berriz, bi margo, bi bodegoi: pitxer bat ezkerrekoan; eta fruta-mordoxka bat **eskuinekoan**; erdi ilunean ozta-ozta ikusgarri. Txillardegi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gabarrak Ishim ibaiaren **eskuin** ertzean utzi zituen tarantasa eta zaldiak, eta ziztu bizian abiatu ziren berriro ere estepako bidean aurrera. Karlos Zabala

Aurrealdeko **eskuin** gurpila matxuratu zaio zundari. Berria - Gaiak

Tomek sutan ekiten dio **eskuin**-hegalaren aurka, Amerikaz jabetu dela-eta. Oskar Arana

Irkutsk hiria Jeniseiren ibaiadar horren **eskuin** hegian zegoen. Karlos Zabala

Orduan, tximistaren pare, zartako ikaragarri bat eman dio neskari **eskuin** masailean, eta, hurrena, kemen berberaz, ezkerrekoan. Patxi Zubizarreta

Leloari ekin zion, oihuka, oihuen erritmoa keinu itsusi errepikatu batez markatuz, **eskuin** eskua ezker besondoan jarriz eta besaurrea goraka behin eta berriro katapultatuz. Joan Mari Irigoien

Ezker eskuaz emakumearen **eskuinari** oratuz. Felipe Juaristi

Hil aharia eta, haren odoletik harturik, igurtzi Aaronen eta beronen semeen eskuineko belarria eta **eskuin** eskuko eta **eskuin** oineko erpuruak, eta isuri gainerako odola aldare inguruan. Elizen arteko biblia

Bi besoak agerian jarri zituen, **eskuin** besoa burkoaren gainean ezarrita, eta **eskuin** masaila **eskuin** eskuaren gainean pausatuta. Ibon Uribarri

Charlyren trufei kasurik egin gabe, amorante bati bezala itsatsi nintzaion bizkarrean, **eskuin** besoan tatuaturiko bihotz geziz zauritua sudurpean nuela. Aingeru Epaltza

Kanoikada batek betikoz maingu utzi zion **eskuin** zangoa. Aingeru Epaltza

Ibai aldera abiatu ziren biak, gizonezkoa **eskuin** hankatik herrenka, eta emakumezkoa ezkerrekotik. Felipe Juaristi

Iduri zait bazter edo **eskuin** so batzuk ene gainean daudela, sentimentuak asmatuz eta ikertuz. Piarres Aintziart

3 eskuineko eskua.

Beste eskua, Safok **eskuina** eta Egeak ezkerra, elkarri emana zuten, bata besteari lotuta baitzebiltzan, bizitzan ez ezik, bizitzako unerik gehienetan ere bai. Felipe Juaristi

Jakobek bere eskuak luzatu eta **eskuina** Efraim seme gazteenaren buru gainean ezarri zuen eta ezkerra Manases lehen-semearen buru gainean, eskuak gurutzatuz. Elizen arteko biblia

Hantxe itxaron zion besteari, **eskuina** gerrian, ezkerra hagari helduta. Alberto Barandiaren

Partidan haren **eskuina** bilatuko dut, baina ezin naiz horrekin itsutu. Berria - Kirola

Zure **eskuina**, Jauna, / handi da eta indartsu; / zure **eskuinak**, Jauna, / etsaia du txikitzen. Jose Antonio Mujika

Istant horretan, Joxek zamarrako sakelan sartu du **eskuina** eta labana ia ukitu orduko ireki da. Pello Lizarralde

-Bai, duela lau urte - **eskuina** altxatu eta urrezko eztei-eraztuna erakutsi dio Imanoli-. Iban Zaldua

Horrexek galtzen nau oraindik ere: ezkerreko eskuari jaramon egin beharragatik, **eskuina** kemenik gabe edo desgaraiz edo brastakoan erabiltzeak. Anjel Lertxundi

Poliki mugitu du **eskuina** ere, pistola ateratzeko. Aingeru Epaltza

Ene hitzak aditu bezain fite, zutitu zen kapitaina; paratu zuen mahai gainean ezker eskua, zeinean baitzeraman pipa; luzatu zuen **eskuina**; jarri zidan hura besagainean. Joan Mari Irigoien

Bolantea ezker eskuarendako utzita, Ximurrak jarlekuaren azpira luzatu zuen **eskuina**. Aingeru Epaltza

Ukitu zituen Sansonek etxeari eusten zioten erdiko zutabe biak, eskuak ipini zituen haien kontra, batean ezkerra eta bestean **eskuina**, eta oihu egin zuen "Hil nadila, filistearrekin batera". Jose Antonio Mujika

Ezkerrak nagusi eta **eskuinak** laguntzaile behar dutenetan sortzen zaizkit arazoak, eskuina baldartu egiten baitzait eta kontrakarrean segitzen baitio ezkerrari. Anjel Lertxundi

Zuk limosna egitean, ez beza jakin zure ezkerrak zer egiten duen **eskuinak**. Elizen arteko biblia

Arkulariak ziren, geziak nahiz harriak jaurtikitzen trebeak, nola **eskuinez** hala ezkerrez. Elizen arteko biblia

4 *izond* eskuineko aldean dagoena.

Aldentzerakoan, Klarak esku **eskuina** altxatu zuen. Iñaki Iñurrieta

Haren esku-**eskuina**, felpazko eskularru batean sartua, bularra igurzten hasi zitzaidan, garbitzen ari balitz bezala, baina nik nire baitan nabaritzen nuen inoiz ez bezala

berotzen ari nintzela. Juan Martin Elexpuru

Beso **eskuina** galdu zuen Santo Domingon, bi urte lehenago, esklaboen jazarraldietan. Elena Touyarou

Atzo arratsaldean, izter **eskuina** tiraka hasirik eta gaur gehiago, utziko dut hemen ibilaldia. Piarres Aintziart

Emaztea, lerrako bat eginik, harri baten gainean jarririk dago, zango **eskuina** luzaturik txorkatila hantua dauka kondatu didate O Cebreirora heltzen ari zirela. Piarres Aintziart

Gure aitzinekoak gehiegi fidatu ziren, beharbada, Lege Zaharrari eta Jainko onaren... esku **eskuinari** ! Piarres Xarriton

5 *izond* pertsonez mintzatuz, idazteko eta, batez ere eskuinaz baliatzen dena. ik**eskuintiar**.

Pertsona **eskuin** batek ezkerreko burmuin-hemisferioa du nagusi. Irene Aldasoro

Jokalari bat **eskuina** bada, normala da eskuinarekin hobeto jokatzea baloia -E... ba, ni **eskuina** naiz -esan zion Harryk. Berria - Kirola

6 *adlag* eskuinetara.

Kastillan, ezker garia, **eskuin** garia, aurrean garia, atzean garia. Piarres Aintziart

Nork ikusi ditu behin ere holako bolantak suzko uhainen gainean dantzan? "Erdizka lauetan! **Eskuin** ! Ezker! Jauzi!". Michel Oronoz

Bada bat beherean, zokoan **eskuin** , zure aintzinean; bestea lehen estaian da. Marzel Etxehandi

Ezker ama, **eskuin** aita, ama isilik bezain elasturian sartua, dena zirto. Piarres Aintziart

Eskuin , bere etxe xuriekin, herri bat, frango ttarroa: Arre. Piarres Aintziart

Abel ikustean mugitu da, **eskuin** , pagadian sartu eta gailurretik aldentzen den bidexidor garbitik. Pello Lizarralde

Hor berean, **eskuin** , errepidetik ehun bat metrora, iturri xuri bat. Piarres Aintziart

Ezker Iruñea, **eskuin** Sierra del Perdón, lainoek hartua. Piarres Aintziart

Minutu erdi baten dudak plantatu nau hor berean eta, azkenean, **eskuin** hartu dut. Piarres Aintziart

Geroztik bada beste zubi luze bat egina, "Burdin zubi" **eskuin** utziz Iruñerakoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pentze handi eder bat utzi dugu **eskuin** eta zuhaitzen erdian hasi gara igaten. Piarres Aintziart

Ardi bulunbak entzuten hasi dira, larreak **eskuin** eta oso hurbil dituztelako seinale. Pello Lizarralde

Antzoki Handiaren parean arribatu ginen, **eskuin** hartuz, ibaiari buruz. Piarres Aintziart

Zutitu denean **eskuin** jo du, hegian barrena lasterka. Pello Lizarralde

Frango **eskuin** behatuz, horra Gainekoletako bordaldeak eta Luzaideko mendia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

7 *iz* Legebiltzarrean, alde ez aurrerakoia, eskuindarren multzoa.

Duela hamar urte *Destra e sinistra* (**Eskuina** eta ezkerra) liburua eman zuen argitara, bere libururik salduena izan dena, eta erreferentzia garrantzitsua izan da Italiako politikagintzan. Berria - Kultura

Txilen bi ezker eta bi **eskuin** daudela diote batzuek. Berria - Harian

Ezkerrak **eskuinak** eskaintzen ez duena eman behar du. Berria - Kultura

Hor gaindi **eskuina** da nagusi baina etiketak ardura agertu gabe, horrengatik ez da aise erraiten ahal hau edo hura UDF edo RPR den. Herria

Orotarat, 92 alki, **eskuinak** 71. Herria

Nor zen orduan gobernuan? **Eskuina** , dakidanez. Herria

Gérard-ek politika ez du batere jarraitzen eta ezkerreko jendea ez du hainbertze estimatzen Kattalinek betidanik **eskuina** arbuiatu du Sophie-ri hori ez zaio hainbertze axola bere ideiak baditu. Eneko Bidegain

Eskuina ez du kontuan hartu; soilik ezkerrarentzat agintzen du. Berria - Mundua

Kontutan hartu beharko da zeren Dupont-Aignan-en inguruan baitaude Europaren kontra direnak, jakobino errabiatuak, hots, **eskuinaren eskuina** . Herria

Eskuin espainolak eta **eskuin** nazionalistak baztertu zuten. Berria - Kultura

Andres Hurtado hartu zuten banderatzat gerora (oraindik orain) **eskuin** espainolistaren gobernuaren ganbelazale bihurtuta ikusi ditugun batzuek -batzuk besteak baino pikaroago, alde gutxirekin hala ere-. Josu Zabaleta

Aukera dugu **eskuin** abertzalekoak ez diren botoak berriro ere **eskuin** abertzalera joatea eragozteko. Berria - Euskal Herria

Eskuin Kristau horretako maniakoez. Oskar Arana

Presidentetzarako lehia irabazi zuen herenegun, Sebastian Piñera RN Berrikuntza Nazionaleko (**eskuin** liberala) hautagaiari nagusituta. Berria - Harian

Aurten ez da hauteskundeetara aurkeztuko eta, beraz, **eskuin** -zentroko hautagai bakarra Caset da. Berria - Euskal Herria

Parisen zegoen Charles X. erregea, gogoz eta bihotzez "ultra"; orain erran genezake **"eskuin** burukoa". Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Israelgo **eskuina** , Ariel Sharon buru, beti bere bidean aitzinatu beharrez dabila: [...]. Herria

Izan ere, bi erakundeek botere handia dute eta batean zentro-ezkerra eta bestean zentro-**eskuina** nagusitu izan balitz litekeena da bozak berriro egin behar izatea. Berria - Harian

Neonaziak edo **eskuin-eskuinekoak** diren taldeak arbuiatzen dituzte gehien. Berria - Euskal Herria

Ez da ezker edo **eskuinik** gelditzen munduan, txiste xoragarri horretxek erdibitzen ditu gure muinak. Patziku Perurena

Gaur abertzalekeria kritikatzen zaio: **eskuinik** atzerakoienaren diskurtsoa bazkatu izana. Anjel Lertxundi

8 *eskuin alde* ik **eskuinalde**.

9 ***eskuin ezker***

Nire edari saminetik edan bai, edango duzue; baina nire **eskuin-ezkerretan** eseri ahal izate hori ez dago nire esku inori ematea. Elizen arteko biblia

9a ***eskuin mutur*** muturreko eskuina.

Ezezkoa Alderdi Sozialistak, aipaturiko zentro-ezkerreko alderdietako hainbat kidek, alderdi kristauek eta **eskuin muturrak** eskatu zuten. Berria - Harian

Eskuin muturraren gorakada. Berria - Mundua

Frantziako **eskuin muturrari** buruzko dokumental batean. Eneko Bidegain

Eskuin muturreko ideologo bat zen, eta lehendakari kargua hartu bezain laster, ero arriskutsuen esku egongo omen zen gobernua. Oskar Arana

Nik uste dut oso jende gutxik jar dezakeela auzitan egia hori, soilik **eskuin muturreko** espainolistek, edo aspaldiko ezker dibinoak, askotan saloiko faxismoan bukatu duenak. Bernardo Atxaga

10 ***ezker edo eskuin***

Aspekoak bikain sakatzen du, ederki irauten dio kantxa erdiko pilota hartu-emanari eta beste inork ez bezala sartzen da airez; berdin **ezker edo eskuin** , berdin boleaz zein sotamanoz. Berria - Kirola

Ezker edo eskuin begia bezain zeurea. Hasier Etxeberria

11 ***ezker ala eskuin***

Ezker ala eskuin , askok egiten duten oharpena: alderdieri denetz baitezpada neren hautagaiaren hola hautatzea, hori alderdi baten egitekoa denetz… Hortaz ere bada eztabada frango ez idurika. Herria

Erreka bitan banatzen bada ere, urak erabakitzen duela, eta ez guk, **ezker ala eskuin** , nondik eramango gaituen. Imanol Zurutuza

Mariaren esku batek - **ezker ala eskuin** ezin zehaztu mezulari gazteak- krabelin zuria bota zion Kopenhageko printzeari, baina loreak zalgurdiko kristala jo, eta lurrean geratu zen maspildurik. Felipe Juaristi

12 ***ezker eta eskuin*** *(orobat* ***eskuin eta ezker*** *g.er.)* ezkerrera eta eskuinera.

Ezker eta eskuin , arbola ttipi pollitak eta laster behi edo zaldi aterpe zahar baten ondotik, xaradi bat, zernahi zuhaixka sistakor elkarri lotuak daudela. Piarres Aintziart

Azofra bere karrika nagusi luze eta ederrarekin agertzen zait: hemen ere, etxeak eraiki dira, **ezker eta eskuin** , Caminoari esker. Piarres Aintziart

Adiskide anitz handik joanak ziren **ezker eta eskuin** lantegia erre zenetik. Marzel Etxehandi

Gorantza leunean kale hertsiaren bukaeran, zuhaitz ederrak **ezker eta eskuin** . Txillardegi

23an ibili naiz herri horretan zer topografia mota duen jakin nahiz eta horretako kurritu naiz **ezker eta eskuin** , proiektu bat egiteko asmoarekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bertzeen oharkabean ihes egin nahi duelakoa jokatuz, burua apaldu eta urrats luzean zeharkatu nuen erredakzioa, **ezker eta eskuin** beldurtu antzo begiraka. harmail nagusiko berrikuntzen bigarren fasea amaituta, prentsarako gunearen **ezker eta eskuin** ezarri dituzten kabinak estreinatuko dituzte. Aingeru Epaltza

Euskal-Herriko parropiez eta Iraultza handiko gertakariez zernahi lekukotasun eta argitasun bildu zuen, zernahi paper zahar miatuz ere **eskuin eta ezker** . 70 eta 80 hamarkadetan **ezker eta eskuin** , mugaz bi aldetan, hiri, herrixka edo auzo guzietan ibiliak dira, kantaldiz kantaldi. Israeldarrak, ordea, oinak busti gabe igaro ziren itsas erditik, ur-harresiak zituztela **ezker eta eskuin** . Herria

Burua astintzen zuen zakurrak, batera eta bestera, **ezker eta eskuin** , pasio animal berberaz alde bietara. Harkaitz Cano

13 *ezker-eskuin* *(orobat **eskuin-ezker** g.er.)*

Etsaia ikusitakoan, haren aurka egiten zuen ezpata eskuan, inork atzetik jarraitzen ote zion begiratzeke eta, gehienetan, **ezker-eskuin** ezpataz joz, **ezker-eskuin** ezpataz zaurituz, bidea egiten zuen, lagunak sar zitezen. Felipe Juaristi

Lepoa **ezker-eskuin** bihurrikatu zuen, zelatari eske. Aingeru Epaltza

Eta argimutilaren ondoan, bi olibondo **ezker-eskuin** . Elizen arteko biblia

Ezker-eskuinetan ate nabarrak ziren eta lurrean koadrodun baldosa merkeak, koskekin batzuk, zikinune arrez beste batzuk. Iñaki Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ala eskuin (5); **antonio carton eskuin** (5); **atzo eskuin** (4); **aurka eskuin** (4); **baina eskuin** (12); **barriolaren eskuin** (4); **bat eskuin** (8); **belarria eta eskuin** (7); **bere eskuin** (15); **blok eskuin** (13); **blok eskuin muturreko** (13); **burua ezker eskuin** (16); **buruari ezker eskuin** (9); **carton eskuin** (6); **da eskuin** (17); **da eskuin eta** (9); **dauka eskuin** (7); **dauka eskuin hankako** (4); **den eskuin** (6); **dira eskuin** (10); **dira eskuin eta** (6); **ditu eskuin** (6); **ditu ezker eskuin** (4); **du eskuin** (28); **du eskuin hankan** (5); **duen eskuin** (8); **edo eskuin** (12); **egin zuen eskuin** (5); **erdiko eskuin** (5); **ere eskuin** (12)

eskuin ala (9); **eskuin ala ezker** (6); **eskuin alboko** (19); **eskuin albokoa** (13); **eskuin albokoak** (5); **eskuin albokoaren** (4); **eskuin alde** (10); **eskuin aldea** (5); **eskuin aldean** (64); **eskuin aldeko** (17); **eskuin aldera** (43); **eskuin aldetik** (18); **eskuin begia** (4); **eskuin begiratu** (24); **eskuin begiratu du** (5); **eskuin begiratu zuen** (10); **eskuin begiratzen** (5); **eskuin behatu** (5); **eskuin belaunean** (9); **eskuin belauneko** (8); **eskuin besoa** (17); **eskuin besoan** (4); **eskuin buruko** (12); **eskuin burukoak** (7); **eskuin edo** (12); **eskuin edo ezker** (7); **eskuin eragin** (12); **eskuin eragin zion** (5); **eskuin eraginez** (4); **eskuin eskua** (54); **eskuin eskuak** (17); **eskuin eskuan** (29); **eskuin eskuarekin** (7); **eskuin eskuaren** (4); **eskuin eskuari** (6); **eskuin eskuaz** (15); **eskuin eskuko** (67); **eskuin eskuko eri** (5); **eskuin eskuko eta** (7); **eskuin eskuko hatz** (27); **eskuin eskura** (4); **eskuin eta** (137); **eskuin eta ezker** (107); **eskuin eta ezkerreko** (4); **eskuin ezker** (22); **eskuin hanka** (12); **eskuin hankako** (38); **eskuin hankako orkatilan** (6); **eskuin hankan** (13); **eskuin hartu** (5); **eskuin hegal** (4); **eskuin hegala** (15); **eskuin hegalean** (52); **eskuin hegalean jokatzen** (4); **eskuin hegaleko** (43); **eskuin hegaleko atzelari** (6); **eskuin hegaleko erdilari** (4); **eskuin hegaleko espainiarra** (4); **eskuin hegalekoa** (23); **eskuin hegalekoak** (12); **eskuin hegalera** (8); **eskuin hegalerako** (5); **eskuin hegaletik** (32); **eskuin hegian** (5); **eskuin higitu** (4); **eskuin higitzen** (4); **eskuin izterrean** (11); **eskuin izterreko** (5); **eskuin jo** (5); **eskuin mugitu** (16); **eskuin mugitu zuen** (9); **eskuin mugitzen** (11); **eskuin mugitzen zuela** (5); **eskuin muturra** (13); **eskuin muturrak** (16); **eskuin muturrarekin** (5); **eskuin muturraren** (17); **eskuin muturrari** (6); **eskuin muturrean** (5); **eskuin muturreko** (146); **eskuin muturreko alderdi** (15); **eskuin muturreko alderdiak** (9); **eskuin muturreko alderdiek** (6); **eskuin muturreko alderdiko** (7); **eskuin muturreko talde** (8); **eskuin muturreko taldeak** (4); **eskuin muturreko taldeek** (6); **eskuin muturrekoa** (9); **eskuin muturrekoak** (4); **eskuin oinarekin** (5); **eskuin oineko** (8); **eskuin oineko erpuruak** (7); **eskuin orkatila** (5); **eskuin orkatilan** (11); **eskuin sorbalda** (5); **eskuin ta** (7); **eskuin ta ezker** (6); **eskuin zangoa** (4); **eskuin zangoko** (8); **eskuin zein** (4); **eskuko eta eskuin** (7)

eta eskuin (154); **eta eskuin aldean** (5); **eta eskuin aldera** (5); **eta eskuin eskuko** (11); **eta eskuin muturrak** (4); **eta eskuin muturreko** (12); **eta eskuin oineko** (7); **eta ezker eskuin** (27); **ez eskuin** (6); **ezker ala eskuin** (4); **ezker edo eskuin** (4); **ezker eskuin** (340); **ezker eskuin begiratu** (24); **ezker eskuin begiratzen** (4); **ezker eskuin behatu** (5); **ezker eskuin eragin** (12); **ezker eskuin eraginez** (4); **ezker eskuin eta** (8); **ezker eskuin higitu** (4); **ezker eskuin higitzen** (4); **ezker eskuin mugitu** (16); **ezker eskuin mugitzen** (11); **ezker eta eskuin** (43); **frango eskuin** (5); **frango eskuin eta** (4); **gero eskuin** (4); **gero ezker eskuin** (4); **gorputzaren eskuin** (4); **haren eskuin** (7); **hartu zuen eskuin** (7); **ibaiaren eskuin** (8); **izanen da eskuin** (4); **izquierdo eskuin** (4); **jose izquierdo eskuin** (4); **le pen eskuin** (4); **lizarrako eskuin** (4); **nire eskuin** (7); **pen eskuin** (4); **portlandeko eskuin** (7); **taldeko eskuin** (4); **vlaams blok eskuin** (11); **zein eskuin** (4); **zelai erdiko eskuin** (5); **zen eskuin** (10); **zituen eskuin** (5); **zituen ezker eskuin** (4); **zuen eskuin** (34); **zuen eskuin eskuko** (4); **zuen eskuin hankako** (4); **zuen ezker eskuin** (5)

baina eskuina (5); **bere eskuina** (4); **du eskuinak** (6); **esku eskuina** (4); **eskuina ere** (5); **eskuina eta** (18); **eskuina eta ezkerra** (6); **eskuina ez** (6); **eskuinak eta** (5); **eskuinak ez** (6); **eskuinaren aldetik** (5); **eskuinaren arteko** (7); **eskuinaren esku** (6); **eskuinaren eta** (12); **eskuinaren eta ezkerraren** (4); **eskuinari aurre** (4); **eskuinaz eta** (5); **eta eskuina** (18); **eta eskuinak** (8); **eta eskuinarekin** (4); **eta eskuinaren** (21); **eta eskuinaren arteko** (7); **eta eskuinaz** (6); **eta zentro eskuinak** (4); **ezkerra eta eskuina** (4); **ezkerra eta eskuinaren** (4); **hauteskundeetan eskuinak** (4); **nafarroako eskuina** (4); **nafarroako eskuinak** (6); **zentro eskuinak** (10); **zentro eskuinaren** (6); **zuen eskuina** (4); **zuen eskuinak** (4); **zure eskuina** (5); **zure eskuinak** (4)

bat eskuinean (4); **bata eskuinean** (4); **bata eskuinean eta** (4); **bere eskuinean** (8); **du eskuinean** (4); **eseri nire eskuinean** (4); **eskuinean dagoen** (4); **eskuinean edo** (4); **eskuinean edo ezkerrean** (4); **eskuinean eserita** (5); **eskuinean eta** (25); **eskuinean eta bestea** (7); **eskuinean zegoen** (7); **eta eskuinean** (21); **ezkerrean eta eskuinean** (5); **haren eskuinean** (4); **nire eskuinean** (15); **zuen eskuinean** (4)

ala eskuineko (4); **ala eskuinekoa** (4); **bat eskuineko** (9); **behar duenaren eskuineko** (4); **bere eskuineko** (17); **bere eskuineko eskua** (5); **da eskuineko** (7); **du eskuineko** (7); **duen eskuineko** (5); **duenaren eskuineko** (4); **duenaren eskuineko belarria** (4); **edo eskuineko** (7); **ere eskuineko** (5); **eskuineko ala** (8); **eskuineko ala ezkerreko** (8); **eskuineko aldea** (10); **eskuineko aldean** (22); **eskuineko alderdi** (14); **eskuineko alderdia** (7); **eskuineko alderdiak** (10); **eskuineko alderdiek** (6); **eskuineko alderdien** (7); **eskuineko alderdiko** (13); **eskuineko aldetik** (8); **eskuineko begia** (12); **eskuineko begiaren** (4); **eskuineko belarria** (10); **eskuineko belarria eta** (7); **eskuineko belaunean** (4); **eskuineko besoa** (31); **eskuineko bi** (16); **eskuineko ertzean** (4); **eskuineko esku** (5); **eskuineko eskua** (58); **eskuineko eskuak** (5); **eskuineko eskuan** (24); **eskuineko eskuarekin** (10); **eskuineko eskuaz** (16); **eskuineko eskuko** (6); **eskuineko eskutik** (4); **eskuineko eta** (9); **eskuineko eta ezkerreko** (6); **eskuineko gobernuak** (8); **eskuineko gobernuaren** (4); **eskuineko hainbat** (4); **eskuineko hanka** (16); **eskuineko hankan** (5); **eskuineko hatz** (4); **eskuineko hautagai** (6); **eskuineko hautagaia** (6); **eskuineko hautagaiak** (5); **eskuineko indar** (4); **eskuineko indarrek** (7); **eskuineko izterra** (4); **eskuineko izterrean** (8); **eskuineko koalizioko** (5); **eskuineko masaila** (4); **eskuineko murrutik** (4); **eskuineko oina** (8); **eskuineko politikari** (4); **eskuineko saihets** (4); **eskuineko saihetsa** (5); **eskuineko saihetsean** (4); **eskuineko sorbaldan** (5); **eskuineko ur** (4); **eskuineko xoko** (6); **eskuinekoa dela** (5); **eskuinekoa eta** (7); **eskuinekoak dira** (4); **eta eskuineko** (91); **eta eskuineko besoa** (5); **eta eskuineko eskua** (4); **eta eskuineko eskuan** (4); **eta eskuineko eskuaz** (4); **eta eskuineko izterra** (4); **eta eskuinekoa** (6); **eta eskuinekoan** (4); **eta eskuinekoaz** (4); **ez eskuineko** (6); **ezker eskuineko** (10); **ezker eta eskuineko** (5); **ezkerreko eta eskuineko** (9); **haren eskuineko** (6); **ibaiaren eskuineko** (6); **izan eskuineko** (5); **izan eskuineko ala** (5); **mutur eskuineko** (12); **nire eskuineko** (6); **ump eskuineko** (5); **zein eskuineko** (7); **zen eskuineko** (10); **zentro eskuineko** (32); **zentro eskuineko koalizioko** (5); **zeukan eskuineko** (6); **zuen eskuineko** (17); **zuten eskuineko** (4)

edo eskuinera (9); **erdian eskuinetik** (6); **eskuinera begira** (4); **eskuinera begiratu** (4); **eskuinera egin** (10); **eskuinera eta** (17); **eskuinera eta ezkerrera** (6); **eskuinera jo** (10); **eskuinera jokatu** (4); **eskuinera sortzen** (4); **eskuinetara hartu** (4); **eskuinetara jiratu** (5); **eskuinetik eta** (8); **eskuinetik ezkerrera** (20); **eta eskuinera** (24); **eta eskuinetara** (13); **eta eskuinetik** (11); **eta eskuinez** (5); **ez eskuinera** (5); **ezker eskuinera** (5); **ezkerrera edo eskuinera** (5); **ezkerrera eta eskuinera** (11); **ezkerretik eskuinera** (58); **ezkerretik eskuinera eta** (5); **ezkerretik eskuinera sortzen** (4); **ezkerretik eskuinerako** (7); **ezkerretik eskuinerat** (8); **ezkerretik eta eskuinetik** (6); **perpausak ezkerretik eskuinera** (4); **zuen eskuinetik** (5)

---

eskuinalde *(orobat **eskuin alde**)* *iz* eskuineko aldea.

Erdiko solairurako sarrera tenpluaren **eskuinaldeko** saihetsean zegoen. Elizen arteko biblia

Hemanen **eskuinaldean** haren ahaide Asaf zegoen. Asaf Berekiasen semea zen; hau Ximearena. Elizen arteko biblia

Mahai gaineko hautsa haizatzeko bezala putz egin zuen, bere mahaiaren ezkerraldean zituen paperak **eskuinaldera** eraman zituen, globomundiaren azpira, tinteroa eta boligrafoak berriz **eskuinaldetik** ezkerraldera, gero klarionak tiraderatik atera eta mahaiaren gainean ipini zituen.· **Eskuin** eta **ezkerraldera** , arku elektriko bakan batzuen argizko kono gris-moreak, ilunpearen zipriztintzaile. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere eskuinaldera (3); **da eskuinaldean** (3); **eskuinalde hortan** (3); **eskuinaldean ere** (4); **eskuinaldean eseri** (3); **eskuinaldean eseria** (5); **eskuinaldean eta** (4); **eskuinaldean jarri** (3); **eskuinaldean zegoen** (4); **eskuinaldetik ezkerraldera** (3); **eta eskuinaldean** (7); **eta eskuinaldeko** (5); **gure eskuinaldean** (3); **jainkoaren eskuinaldean** (6); **tenpluaren eskuinaldean** (3)

eskuin alde (10); **eskuin alde hura** (3); **eskuin aldea** (5); **eskuin aldean** (64); **eskuin aldeko** (17); **eskuin aldera** (43); **eskuin aldera jo** (3); **eskuin alderantz** (3); **eskuin aldetik** (18)

---

eskuinburu 1 *iz ipar* politikan, eskuin muturra.

Beste bi oharpen oraino: lehena, **eskuinburuak** oro har gibelerat egin duela kasik denetan. Herria

Jakinaren gainean ainitzen gostuko Charles Millon **eskuinburuari** josia izana dela eta gutien ustean berriz josten ahal naski. Herria

2 *eskuinburuko* *iz/izond* politikan eskuin muturrekoa.

Ahmadinejad **eskuinburukoa** hautatu dute, gibelatze bat haundia ikusten baitute beste herri gehienek Irana gaixo horrendako pasatuak pasatu. Herria

Orduan izana zen Yitzhak Rabin, Bakearen Nobel-Sariaren irabazle eta Osloko akordioen arduraduna, hil baitzuten judu **eskuinburuko** batzuek. Herria

Batzuek, bereziki **eskuinburuko** horiek, nahi lukete atea arrunt zerratu. Eskuineko eta ezkerreko, **eskuinburuko** eta ezkermuturreko, beste zonbait ere arte hortan sartu nahi, laster ageriko zoin eta nun. Herria

Hor, arras deliberatua, Philippe de Villiers, **eskuinburuko** boz parrasta bat bildu nahiz dabilana preseski eta berak dionaz“ Frantzia egiazki maite duten guziak” bereganatu beharrez! Herria

57 alki irabazleentzat, 21 eskuinekoentzat, 7 **eskuinburukoentzat** . Herria

Eskuinaldekoek % 37 eta **eskuinburukoek** % 13. Herria

Eskuinburukoek arrakasta guti Euskal-Herri barnekalde hortan, bozen % 10-etarat heltzen haatik edo hurbiltzen, nola gerta, Kostaldean eta Baionan. Herria

---

eskuindar 1 *iz/izond* eskuineko alderdi batekoa edo eskuineko alderdi baten aldekoa dena, ideia ez aurrerrakoiak dituena.

Eskuindarren laguntzaz, gerra hiru eguneko kontua izango zelakoan. Edorta Jimenez

Pobreek zein aberatsek, langileek zein enpresariek, **eskuindarrek** zein ezkertiarrek. Alberto Ladron Arana

Bizkaian, abertzaleek badituzte 27 alki, sozialixtek 11, **eskuindarrek** 10, Ezker Batuak 3. Herria

Zerrenda bat egin zen, **eskuindar** eta karlistena, eta zerrendako izen ahalik eta gehienak preso hartzeko agindu zen. Joseba Sarrionandia

Lur gabeen mugimenduek noiz aurtikiko duten Lula, horren beha daude **eskuindarrak** arranoak bezala. Herria

Aspaldian, beti **eskuindarrak** dira hor nagusitu bainan azken urte hotan sozialixtak polliki azkartuak dira. Herria

Rutelli ezkertiarrak eta Berlusconi **eskuindarrak** lelo bera errepikatzen dute maiatzaren 13-an eginen diren botzeri buruz, behar zakola italiano jendeari eman beldurrik gabe bizitzeko ahala. Herria

Batzuk abertzale **eskuindar** , moderatu, poliki ibiltzearen zaleak, anaia Martin bezala; beste batzuk herrikoiago, jatorrago, ezkertiarragoak, anaia Jesus Mari bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Bilbo goseak zegoen eta horrek konponbide hobea zuen hotelean, non Asturias eta Santanderko errefuxiatu **eskuindarren** eta kazetarien diruak mirariak egiten zituen. Lutxo Egia

Fraide **eskuindarrek** ezkertiar ateo bihurtu baldin baninduten, ez pentsa funtzionario ezkertiar progre-usteko haiek atzera ere eliza amaren magalera itzularazi nindutenik. Xabier Mendiguren Elizegi

Akusazioek eragina ukan zuten; amerikar politikari **eskuindar** zenbaitek Gustavo Durani buruzko ikerketari ekin zekion eskatu zuten. Edorta Jimenez

Denak ziren errege-erreginak, edo militarrak, edo bigarren mailako idazle **eskuindarrak** . Mikel Hernandez Abaitua

Alemania hautsi mautsi bati buruz doala iduri du CDV eta SPD bi partidu **eskuindar** eta ezkertiarren artean koalizio neurtu baten egiteko. Herria

Preso **eskuindarren** gorpu odoleztatuek presondegiaren barren-goiak lohitzen zituzten. Lutxo Egia

Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde aberatsenetan eta alderdi espainiazale **eskuindar** edo ezkertiarren artetik egin zuen lehen agerraldia Jelzale alderdiak eta, laster, hor berean erdietsi zituen bere lehen hautetsiak. Piarres Xarriton

Politiko erregezale **eskuindar** gehienak ere ez ziren oso pozik etorri berriarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Guareschi, berez, **eskuindarra** , erregezale eta antikomunista izan zen, antikomunista amorratua gainera. Koldo Biguri

El Universal egunkariak, Venezuelako zaharrenak, atzerakoienak, **eskuindarrenak** , Jaime Lusinchi presidentearen garaian, haren emazte Gladis de Lusinchirekin elkarrizketa bat argitaratu behar zuen, dibortzioa zela eta. Pako Aristi

Nola biziko dira elkarrekin pertsona sinesgabe, ezkertiar, errebelde eta borrokalari bat eta beste bat sinestuna, **eskuindarra** , despota eta langileak kaleratzeko eskrupulorik ez duena? Luis Elberdin

Eskuindarra , baztertzailea, iraingarria. Iñigo Aranbarri

2 (izenlagun gisa)

Eskuindar hautetsiak iraindu egiten ditu; kalera botatzen ditu komunistak. Pablo Sastre

Eskuindar alderdiak norbaiten laguntza beharko du haatik gehiengo osoaren segurtatzeko. Herria

Norvegianere deputatu-bozak zituzten eta hor sozialixtak dira nagusitu, zafraldi bat ona emanez **eskuindar** gobernuari. Herria

3 *hed*

Nola iritsi ote zen bitxigile aberats bat EAJko agintari izatera hiri **eskuindar** batean non euskal nazionalista izatea modernotasun zorotzat hartzen zen. Mikel Hernandez Abaitua

Modu horretan laster historiografia **eskuindarrak** jo eta pasa egin dituela, nazional-katolizismoraino karreran. Joxe Azurmendi

4 (izenondo eta izenlagunekin)

Eskuindar katolikoei -fede onekoei, Mallonak esan zidan moduan- Euzkadi uzteko bidea errazten zitzaien. Edorta Jimenez

Eskuindar zerrendakoek zabaldu zuten paper bat azkarki mendekatuz Albert Péry-ri, paper hortan hamalau aldiz ezarria baitzen gezurti bat zela. Herria

Igande aratsaldean, Zaragozan, tiroz hil dute Aragoi aldeko **eskuindar** alderdiburua, Manuel Gimenez Abad, 52 urteko gizona, esposatua eta bi haurren aita. Herria

Batzuetan **eskuindar** mozorrotuak besterik ez dira; beste batzuetan, dakitela ala jakin gabe, arrazistak edo xenofoboak. Bernardo Atxaga

Elgarretaratu dira ezaren alde ezkertiar andana eder bat erranez gehiegi eskuinekoa zela proposatzen zen Lege Nagusia eta **eskuindar** okituak, haientzat konstituzio horrek desegiten zuela hain maite duten Frantzia. Herria

Funtsean, ordea, Frantzian printzipioz ulergarriak diren kezkak, Finkielkrautek **eskuindar eskuindarrenen** maneran erakusten ditu. Joxe Azurmendi

Orduko **eskuindarrek** kontatzen zuten txiste-itxura guztia du hona dakarkidan pasadizoak: [...]. Anjel Lertxundi

5 (hitz elkartuetan)

Hau dena kontatzen dut, Déroulède horrek, eskuin-**eskuindarra** baitzen. Faxistak ez ziren ohartu, eta guda amaitu zenerako Kim Philbyk landua zuen bere **eskuindar** ospea, eta **eskuindar** ospe horri esker lortu zuen britainiarren zerbitzuetan sartzea. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi eskuindarreko (5); **eskuindar batzu** (3); **eskuindar batzuk** (5); **eskuindar eta** (12); **eskuindar eta sozialixtek** (4); **eskuindarra eta** (4); **eskuindarra zen** (3); **eskuindarrak eta** (5); **eskuindarrak ez** (4); **eskuindarrak nagusi** (3); **eskuindarrek badute** (3); **eskuindarrek ez** (3); **eta eskuindar** (6); **eta eskuindarra** (3); **eta eskuindarrak** (4); **eta eskuindarrek** (5)

---

eskuindartasun *iz* eskuindarra denaren nolakotsuna.

Kontua da anaia Martin geneukala orduan irakasle, mistikoa eta eskuindarra, eta bere **eskuindartasun** horretan Coca-Colaren lehiaketa hura ez zuela nonbait oso gogokoa: kontsumismoaren bultzatze bat iruditzen zitzaion, egia baizik ez dena noski, eta, hortaz, gure kurtsokoak ez joatea erabaki zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskuinekotu, eskuineko(tu), eskuinekotzen da *ad* eskuineko bihurtu.

Alderdi Laborista **eskuinekotu** egin da eta Plaid Cymru alderdi independentista da, ezkerrekoa. Berria - Mundua

---

eskuineratze *iz* eskuinera jotzea.

Beraz, eta Lizarberen ingurukoek kongresuaren atarian emandako azalpenek bazuten funtsik: ez zegoela bi hautagaien arteko benetako alde ideologikorik, ez bazen Miguel Sanzen gobernuaren aurrean zer jarrera hartu, eta Chiviteren garaipena horixe izango zela, alderdiaren **eskuineratzea**. Berria - Euskal Herria

---

eskuinerdi *iz* erdialdeko eskuina.

Likud eskuinaldea bi parte jarriz, parte hortarik batean ba omen luke bere xantza, Benyamin Netanayahu bere partidaren garaitzeko, hola beste kide batzuekin irabaztun geldi bailitake: Likud horren eskuinaldea eskuinean bera utziz, **eskuinerdian** egin partidu berrian gaina bailuke. Herria

Europako bertze herrietan ere beha zauden, ea Berlusconik, **eskuinerdiko** buruak partida eremanen zuenez eta Austrian bezalako zerbait etzenez gertatuko, esku emana baitzakon alabainan Bossi iparreko ligaren buruzagiari. Herria

---

eskuinkakada *iz* piloari edo baloiari eskuinaz jotzen zaion kolpea.

Pascualek maila izugarrian ekin zion partidari, eta bere **eskuinkadek** lehen txaloak eragin zituzten (6-3). Berria - Kirola

Urangak izan zuen abagune bakarra, baina Ricardok ondo gelditu zuen bere **eskuinkada**. Berria - Kirola

Bereak izan ziren abagunerik garbienak: 10. minutuan, Prietok maisuki utzi zuen atzean Raul Bravo area barruan, baina bere **eskuinkada** erdira joan zen. Berria - Kirola

Mark Gonzalezek ere bitan jaurti zuen arriskuz, baina lehen ezkerkada Casillasek gelditu zion, eta bigarren **eskuinkada** gora joan zitzaion, area ertzetik. Berria - Kirola

Juan Rodriguezek, adibidez, mutu utzi zuen Anoeta, **eskuinkada** gurutzatu batekin. Berria - Kirola

---

eskuinkeria *iz* eskuinari edo eskuindarrari dagokion egite makurra.

Utz beraz bazterrerat eskuinen **eskuinkeriak** eta ezkerren ezkerkeriak. Herria

---

eskuintiar *izond ipar* eskuindarra.

Hortaz indar harturik **eskuintiarrak**, ari dira beren batasunaren berriz osatzen, Blair horren adiskide diren Labour alderdikoen berdintzeari. Herria

Ariel Sharon judua ere kexu da bere alderdiko **eskuintiarrendako**, ez dutelakotz laguntzen Gazako zerrendatik juduen erretiratzearen bururatzeko. Herria

---

eskuinzale *izond* eskuinaren aldekoa.

Polinesian beti duda-zalantzan daude Gaston Flosse frantses **eskuinzalearen** eta Oscar Temaru oposiziokoaren bi alderdiak. Herria

Leonardo Canal jeneral **eskuinzalearen** armadan sartu zen, kapilau militar. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aristokraziako indar **eskuinzale** eta militaristen artean zebilen konplot eta altxamendu giroan ohikoa zen istorioarekin ari zen Dimitri. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

eskuizkribatu, eskuizkriba(tu), eskuizkribatzen **1** du *ad* eskuz idatzi.

Zirriborroak idatzi eta idatzi jardun zuen; zintzo-zintzo zuzendu zituen behin eta berriro, eta **eskuizkribaturiko** orriak milaka urratu zituen. Juan Garzia

2 (era burutua izenondo gisa)

Beren eragingarritasuna puntuazioari zor dioten bertso batzuen zerrenda **eskuizkribatu** bat. Juan Garzia

Quevedoren *Aguja de navegar cultos* obraren itzulpen **eskuizkribatu** bat, *La Boussole des précieux* izenburuz. Juan Garzia

Seda horiz enkoadernaturiko ale **eskuizkribatu** batzuk ezagutu nituen, Dinastia Argitsuko Hirugarren Enperadoreak zuzendu zuen eta sekula inprentara eman ez zen Entziklopedia Galdua delakoarenak. Juan Garzia

---

eskuizkribu **1** *iz* eskuz idatziriko izkribua.

Horretan eteten zen **eskuizkribua**. Josu Zabaleta

Horrela dago idatzirik **eskuizkribuan**. Jon Alonso

Ezagutzen du **eskuizkribuaren** egilea. Josu Zabaleta

Pasarte hau hainbat **eskuizkribuetan** falta da, ziurrenik 1 Zel 49-50 zk-ekin duen antzagatik. Askoren artean

Ez dugu testuaren inolako **eskuizkriburik**. Askoren artean

Nire argitaratzaileari **eskuizkribuak** ematen nizkion. Koro Navarro

Hawthorne-ren **eskuizkribua** desagertu egin zen. Oskar Arana

Bere **eskuizkribuaren** orrietako bat zen. Josu Zabaleta

Esku batean behatz artean urtzen ariko zitzaion kandela mutur bat zuela, eta besteaz antzinako **eskuizkriburen** baten orriak pasatzen, handik agian egia erneko ote zitzaion ustez. Josu Zabaleta

Inbentarioan sailkaturiko 196 **eskuizkribuetatik** 147 oinarri harturik, ondorio aski finkatuetara iritsi dela dirudi Santuaren idazkien benetakotasunari eta testu kritikoari buruz. Askoren artean

Dakiguna da Erdi Aroko **eskuizkribu** batzuen artean zegoela, agidanean, eta 234 orrialdeko liburu koadernatu bat dela, hizkuntza ezezagun batean idatzia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Liburutegiko MME 408 **eskuizkribua** da, deszifratu gabe dago eta sekula baino misteriotsuago jarraitzen du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gogoaren beheraldi hondogabe horietako batean, 1852ko otsailaren 11tik 12ra bitarteko gauean, *Arima hilak*-en bigarren tomoaren **eskuizkribua** erre zuen. Jose Morales

Voynich **eskuizkribuan** idatzitakoak ez du, itxuraz, esanahi jakinik, hizkuntza ezezagun batean idatzia dago, eta, beharbada, han erabiltzen dena ez da hizkuntza bat ere, motroilo asmaturen bat baino. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lehen **eskuizkribuan**, Skudronjoglo. Jose Morales

2 (izenondo et izenlagunekin)

Eskuizkribu autografo bereko atzealdean. **Eskuizkribu** zahar bateko oharrak dioenez, Lehen Bizitza 1229ko otsailaren 25ean eman zuen ontzat Gregorio IX.ak Perugian. Askoren artean

Nola frogatuko zuketen Harryk jakinaren gainean saldu nahi izan ziela **eskuizkribu** faltsu bat beren buruak ere hartan nahastu gabe? Oskar Arana

Ez da kasualitatea, XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan Nafarroan euskaraz idatzi diren fikziozko liburu anitzen mamian **eskuizkribu** galduak badaude, lehenagoko denboretan, arrazoi erlijioso, politiko zein sozialak zirela medio beren obrak zabaldu ahal izan ez zituzten idazle ezezagunenak. Berria - Kultura

Kasu berezia da Erregela Buldaduna, Erromako Kuriako bulda ofizialean txertatua gordetzen baita: **eskuizkribu** ugarietan iritsi zaigu. Askoren artean

Tradizio ezberdineko **eskuizkribu** gutxi batzuez baliatuz, biak ondorio berdintsuetara iritsi ziren. Askoren artean

Doktorea bere jangelan sartu zen, eseri zen mahai aurrean, sartu zuen bere zapia xenilan, zabaldu bere ondoan **eskuizkribu** preziatua, [...]. Josu Zabaleta

"Perugiako", hiri honetan aurkitu zelako lehen **eskuizkribua**, XV. mendearen lehen erdialdekoa Ponpeiako indusketetan aurkitutako hebrear **eskuizkribu** bat balitz bezala saltzen baitzuen liburuzaleak. Askoren artean

Iragaitzaz zeuden itsasontziei indarrez kendutako jatorrizko **eskuizkribuen** gordailua. Jon Muñoz

Eskua Louis XIII armairu bateko hirugarren apalera eraman eta pergaminozko **eskuizkribu** handi bat atera zuen handik. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halaxe gertatu zen Melvilleren gutun eta **eskuizkribu** sorta batekin, duela urte batzuk, New York iparraldeko etxe batean. Oskar Arana

Iturri nagusia, oinarrizkoa, Xahok berak, 1844an, Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques izenburuarekin argitara emateko prestaturik utzi zuen **eskuizkribu** bilduma da, 70 kantuz osatuta. Berria - Kultura

Ohantzea, kadira eta mahaia zituen, eta mahaiaren gainean tintontzia, argizariak eta **eskuizkribu** meta. Aingeru Epaltza

Albaniar honek, kimikaria lanbidez eta artista zaletasunez, 1843. urtean egin zuen, dakigunez, bere lehen lana, **eskuizkribu** faltsutzeei dagokienez, behintzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eskuizkribu-idazlea. J.M. Olaizola "Txiliku"

5 ***eskuizkribuzko*** *izlag*

Idazkiak ez du **eskuizkribuzko** testigantzarik, eta Kajetan Esser-ek "opuscula dictata" direlakoen artean sartzen du. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten eskuizkribua (3); **bere eskuizkribu** (3); **bere eskuizkribua** (3); **bere eskuizkribuaren** (3); **beren eskuizkribuak** (3); **bigarren tomoaren eskuizkribua** (3); **ditu eskuizkribuak** (3); **erdi aroko eskuizkribu** (5); **eskuizkribu bat** (14); **eskuizkribu batean** (7); **eskuizkribu batzuk** (5); **eskuizkribu bitxien** (3); **eskuizkribu eta** (7); **eskuizkribu guztiak** (8); **eskuizkribu haren** (3); **eskuizkribu hau** (4); **eskuizkribu hori** (3); **eskuizkribu horren** (3); **eskuizkribu horren egilea** (3); **eskuizkribu zahar** (4); **eskuizkribu zaharretan** (5); **eskuizkribua agertu** (3); **eskuizkribua aurkitu** (4); **eskuizkribua ere** (3); **eskuizkribua erre** (3); **eskuizkribua erre zuen** (3); **eskuizkribua irakurri** (4); **eskuizkribuak eta** (7); **eskuizkribuak ez** (3); **eskuizkribuan agertzen** (3); **eskuizkribuan hitz** (4); **eskuizkribuaren egilea** (6); **eskuizkribuaren kopia** (4); **eskuizkribuaren lehen** (3); **eta eskuizkribu** (13); **eta eskuizkribu bitxien** (3); **eta eskuizkribuak** (5); **lazarragaren eskuizkribua** (9); **lazarragaren eskuizkribuak** (3); **lazarragaren eskuizkribuaren** (8); **liburu eta eskuizkribu** (3); **liburuaren eskuizkribua** (3); **mendeko eskuizkribu** (4); **onettiren eskuizkribuak** (3); **perez lazarragaren eskuizkribua** (3); **perez lazarragaren eskuizkribuaren** (3); **ren eskuizkribu** (3); **ren eskuizkribua** (3); **tomoaren eskuizkribua** (3); **tomoaren eskuizkribua erre** (3); **voynich eskuizkribua** (3); **zuen eskuizkribu** (3); **zuen eskuizkribua** (4)

---

eskuizkributxo *iz* eskuizkribu xumea.

175 Hau orain hogeita bost urte baino gehiago agertu zen, **autorearen** eskuizkributxo batean; ia bere osoan aldatu da hona. Iñaki Iñurrieta

---

eskujabe *iz* bere buruaren jabea.

Lan egin dudan fabrika guztietan ezagutu izan ditudan jakadun guztietan ez nuen **eskujabe** zenik inor topatu. Koldo Izagirre

---

eskujantzi *iz* **

Ez daude errazak gauzak **eskujantzi** hauekin, dios! Karlos Linazasoro

---

eskujokari *iz* eskujokoak egiten dituen ilusionista. ik **prestidigitadore; ilusionista**.

Agertokian bata bestearen ondotik azaltzen ziren gizonezko nahiz emakumezko abeslariak, eta batzuetan baita **eskujokariak** eta akrobatak ere. Baina ez du luzaroan aldean edukiko, gaur egun munduan diren **eskujokari** eta inkaminari guztiek ezagutzen baitute, eta aldiro-aldiro etortzen baitira ezer berririk baduen begiratzeko. Jose Morales

Agertokian bata bestearen ondotik azaltzen ziren gizonezko nahiz emakumezko abeslariak, eta batzuetan baita **eskujokariak** eta akrobatak ere. Jose Morales

Zerbait argazkilari edo politikari zahartutik, garai berrietako molde eta ideiez ezer jakin ez eta denbora bateko amarru eta **eskujokari**-arte limurtzaileei egoskor eusten dieten pertsona klase horretatik zerbait. Ander Irizar

---

eskujoko ik **esku 10**.

---

eskuka *adlag.* esku beteka.

Gero, isiltasuna, hildakoen isiltasuna ibaika, itsasoka, **eskuka**, zabaldu zen Parisko karriketan barrena, Parisko harrien gainetik, Parisko harrien arteko zuloetatik, harriaren iluntasunean argi eginez. Felipe Juaristi

---

eskukada **1** *iz* esku batean eduki daitekeen edo esku bakarrez heltzen ahal zaion kopurua. ik**eskutada**.

Luze-luze eta ahoz goiti etzan eta belarra banatu dute: **eskukada** pare bat buru azpian, beste hainbeste bularrean eta gainerakoa zangoetan. Pello Lizarralde

Busturiako gizon-emakumeek, bustitako harriak eta lupetzezko **eskukadak** jaurtikitzeari ekin zioten. Joanes Urkixo

Bazkaltzera jaitsi ziren, eta han Ronen aldartea ez zen asko hobetu, Hermionek **eskukada** jaka-botoi erakutsi baitzion, berak Antzaldaketako eskolan ezin hobeto eginak. Iñaki Mendiguren

-Badakit! -esan zuen, eta ibaian tente jarri eta **eskukada** errekarri txiki bildu zuen-. Mirentxu Larrañaga

Eskukadak paper jaurtitzen ditu gorantz, haizeak ikusleen bizkarretara soldaduen hedeetara ofizialen ezpatetara apezpikuaren urreetara eroan ditzan. Koldo Izagirre

Bonboi bat sartu nuen ahoan, eta, kontu handiz, **eskukada** bat hartu nuen, poltsikoan gordetzeko. Juan Kruz Igerabide

Marmol pusketatxo bat honi, hamar gramo bromo hari, azido boriko apur bat horrako horri, **eskukada** bat buztin beste horri. Juan Garzia

Kukua lehenbizikoz entzutean, zeunden tokian zeundela, hangoxe **eskukada** bat lur eraman behar zenuen etxera, lur hura etxean zabalduz, bertako hartxo, kukuxo eta zorriak akabatzeko. Pello Zabala

Eskua diruzorroan sarturik, mutilari **eskukada** bat txanpon eman, eta amari eramateko eskatu zion. Patxi Zubizarreta

"Gureak egin du, dena galdu dugu", baina ez horregatik kentzen dio begia Liba alaba zaharrenari, neska zintzo eta gozoa, ez diezaion inori eman **eskukada** bat baba edo ogi zerra bat. Felipe Juaristi

Eskaintzatik, olioz nahasiriko **eskukada** bat irin, intsentsu guztiarekin batera, hartu eta aldarean erreko dute, Jaunak atseginez onartzen duen oroigarritzat. Elizen arteko biblia

Egun baten, ezustean, putzu berria topatu zuten harea artean, eta Harithek **eskukada** bat ur eraman zuen ahora. Jon Arretxe

Zerbitzaria etorri zen, **eskukada** bat egur zekarrela, eta tximinia piztu zuen. Felipe Juaristi

Eskukada bat txanpon urrezko utzi belaunaulkiaren gainean, eta zutitu egin zen. Juan Garzia

Zoriak bere gutizien arabera mahaian barreiaturiko gerezi ustel **eskukada** baten pareko ziren kortxea tristeak eta karrankariak baino ez nituen sakatzen. Harkaitz Cano

Charliek **eskukada** bete untxi-gorotz sartu zuen paperezko zorro batean eta Big Joeri esan zion gozokiak zirela. Mirentxu Larrañaga

Urez bete ontziren batean **eskukada** bete gatz jaurti, eta galtzak belaunetaraino goititurik, oin minduak uretan sartu, eta solasaldi luzeak izaten dituzue. Xabier Montoia

Jaunaren aurrean dagoen aldareko ikatz goriz errauts-ontzia betez eta bi **eskukada** intsentsu-hauts usaintsu hartuz, kortinaz barrualdera eramango ditu. Elizen arteko biblia

Ez zioten entzun, baina keinua seinaletzat hartu zuten eta denek, besteak beste Zigor nazatela gogor jainkoek, nirekin diren lagun hauek Samaria horretatik **eskukada** bana hartzeko adina hauts gelditzen bada. Joanes Urkixo

Ezkonberriei ere, ezkon-gauerako hurrak ematen zitzaizkien **eskukada** bana. Pello Zabala

Jaunaren aurrean dagoen aldareko ikatz goriz errauts-ontzia betez eta bi **eskukada** intsentsu-hauts usaintsu hartuz, kortinaz barrualdera eramango ditu. Elizen arteko biblia

2 (izenlagunekin)

Egun bateko lana **eskukada** polit bat diruren truke. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nire fantasia egia bihurtuko balitz, bere aita bihurtu zen hezur eta errauts **eskukada** lurperatu ondoren, nire semeak nik idatzitako definizio liburua irakurriko luke. Berria - Kultura

Altxorra desssagertzen denean, gu hil egingo gara, bai, hautsssetan hilko gara -errauts **eskukada** bat harrotu zuen hatz luze hezurtsuekin-. Agustin Otsoa

Gizon haietako batek elur **eskukada** bat jarri zion buruan. Pablo Sastre

Hurrena, garagar **eskukada** bat zabaldu zuen errekastoaren bazterretan, eta garagarra berehala erne zen. Patxi Zubizarreta

Haize **eskukada** bat baino arinagoa zen barruko txoria, baina besoa gogortzen zitzaidan, mugiezin. itxura arraroko txapon- **eskukada** bat atera zuen Harryk. Juan Kruz Igerabide

Imanolek belar- **eskukada** bi hartu, eta airean bota zituen, bortizki, landare-euri bat itxuratuz. Fernando Morillo

Gauez irlaren hegalean jartzen zen, haizearen marmarra eta uraren xuxurla praktikatzeko, eta ilargi-izpi **eskukadak** harrapatzeko. Julen Gabiria

4 esku kolpea.

Mutilari begiak ireki egin zitzaizkion, are gehiago, amorraturik balego bezalako **eskukada** bat eman zion mahaiari eta atzaparrak oldarkor erakutsi, basapiztien antzo. Xabier Mendiguren Elizegi

Panamazko kapelaz jantzitako osaba batek, **eskukada** batez, pilota zakurrari bidali zion, eta zakurrak hartu eta igeri eraman zuen harrapa ezinezko leku batera. Koro Navarro

Eskuak libre izan balitu **eskukada** bat emango zukeen kopetan (edo agian kokotsa bermatuko zukeen esku-ahurrean). Jon Alonso

Zentimetro gutxitara, **eskukada** jo zion bizkarrean, eta ezaguna balu legezko berbak esan zizkion. Josu Landa

Gazteek gora eta aupa hots eginez eta bizkarrean **eskukadak** emanez ospatu zuten erabakia. Joanes Urkixo

Cumhailek bizkarrean **eskukada** bat eman zion bihotz-bihotzez. Joanes Urkixo

Joseluk barandako burdinei hots metalikoa eragin zien **eskukada** bortitz batez. Josu Landa

Soinetik kendu zuen bakoitzak berea **eskukada** arin batez -ezpata kolpea balitz bezalakoxea izan zen, azkarra eta erabakigarria-. Felipe Juaristi

---

eskukadaka *adlag* esku beteka, ugari. ik **eskutadaka**.

Eskukadaka jaten dute kuskusa zurezko ontzitik harturik. Xabier Montoia

Buruko ileak zurden modura lazten eta **eskukadaka** erortzen zitzaizkidan. Joxan Elosegi

Ni neuk irentsi egin nuen, ahora **eskukadaka** eroanez. Edorta Jimenez

-Hau mundua, alde guztietatik estutzen baitu bat, han-hemenka **eskukadaka** hustuz baitoa eginak garen hautsa, zatitan deseginez gu, lurra gure odolez ihinztatuko balu bezala. Juan Garzia

Umeek altxor distiratsua deskubritu zuten, eta barrabaskeriatan ibiltzeko umorez zeudenean, moidoreak, diamanteak, perlak eta zortziko txanponak botatzen zizkieten kaioei, **eskukadaka**. Julen Gabiria

---

eskukadatxo *iz* eskukada txikia.

Agudo jotzen zuen ganbarako eskailera buruan esekita gordetzen zuen San Joan egunean elizara emandako sorta bedeinkatu hartara, lorez, barazki-landarez eta abarrekikoz osatutako hartatik **eskukadatxo** bat apartatzera. Pello Zabala

Segundo batean, birrindu eta **eskukadatxo** bat hezurki zuri-leunetara urriturik zetzan haren gorputza, eta ematen zuen momiaren esku delikatuek babestu egin nahi zituztela artean ere hondarrok. Juan Garzia

---

eskukaldi ik **esku 12**.

---

eskukaldika ik **esku 13**.

---

eskukatu, eskuka(tu), eskukatzen du *ad* eskuetan behin eta berriz erabili. ik **eskuztatu**.

Eztulka antza eginda, goitik beheiti bi eskuekin **eskukatu** zuen bere bizarra; dukeak zer erantzungo zain gelditu zen bere hartan astiro. Patxi Ezkiaga

Nik dena esan nionean, atzerago eseri zen, hasi zen bere bizar hori-argi ederra **eskukatzen**, berriz aurrera makurtu, mahaiaren gainetik, eta galdetu zuen: [...]. Matías Múgica

Ganbera muturrera abiatu, eta paretaren ondoan zerbait **eskukatzen** ikusi nuen. Aingeru Epaltza

Gehiago edo gutxiago **eskukaturiko** gorotz-pikorra, mila bider oratu den ore lika. Jon Alonso

---

eskukeinu ik **esku 10**.

---

eskuketa *iz ipar* **

Eskuketa eta monozikloa. Herria

Gure xedea da presuna helduak biltzea **eskuketan** aritzeko, tropa amatur bati buruz abiatzen hasteko elkarrekin. Herria

Arte bizien erreferentzia bilakatzen ari dira Baionan Mousserolles harresiak, hirugarren urtea baita ekaineko lehen aste burua **eskuketari** dedikatua dela leku horretan OREKA elkartearekin. Herria

eskuketari *iz ipar* eskujokaria.

Pailaso, **eskuketari**, akrobata,... Herria

Afal aitzin KAG neska bikotearen kantu delirikoak, afal ondoan filosofian sartuko gara Alex **eskuketariarekin**. Herria

Arratseko hamarretan Zirika Zirkusen musika orekatua, gero SeN's CacHé konpainiako **eskuketari** zurrunbilotsuak. Herria

eskuko 1 *izlag* eskuz edo eskuan erabiltzen dena.

Ostiral goizean mutil koskorrak bidali zituzten Dublingo kale nagusietara **eskuko** orriak banatzera. Irene Aldasoro

Liburua **eskuko** maleta txiki batean sartu nuen aldean eraman ahal izateko. Bernardo Atxaga

Eskuko poltsan bila ibili ondoren, txartel bat eman zidan. Ramon Saizarbitoria

Ekonomiaren alorreko mugak eta decalageak norainokoak diren erakusten dute **eskuko** telefonoek. Edorta Jimenez

Apain-mahaiaren gainean, esekirik, **eskuko** ispilu bat ageri zen. Irene Aldasoro

Gisa horretan apaindua, **eskuko** pistolak eite sasikoa erantsiko ziokeen, haurrendako filme kaskar bateko "gaiztoarena", uste ez banu gutienez behin erabilia zuela. Aingeru Epaltza

Eskuko aulki bat hartu eta ontzi gainean eseri zen, ikuskizunaz gozatzera. Felipe Juaristi

Dorrearen puntan ipini, eta **eskuko** eskaileraren azken metroetako mailak moztu zituzten. Ramon Saizarbitoria

Pistaneck idazleari **eskuko** ordenagailua ohostu diote. Edorta Jimenez

Arma bat premiazkoa duzu, **eskukoa**, mutua eta erraz garraiatzen dena. Itxaro Borda

Indian ordenagailurik seguruenak **eskukoak** dira, bateriaz horniturik daudenak. Gotzon Garate

2 ***lehen eskuko*** lehenago besteren batena izan ez dena.

Defentsa ministro Michelle Alliot-Marieri gaiaren gainean duen ardura ez kentzeko asmorik ez duela esan zuten, baina **lehen eskuko** informazioa nahi duela presidenteak. Hala ere, ia ez du **lehen eskuko** informaziorik edo informazio berririk eskaintzen. Puntu horretan, Egiak kendu zion hitza erbia baino arinagoa zela esateko -animaturik, beharbada, egiazko lekuko gisa **lehen eskuko** zerbait esan zezakeelako-, arerio izaten baitzuen Amarako frontoian, eta auzo artekoen finala irabazi baitzion Urumeakoan. Berria - Gaiak

· Horren argibiderik **lehen eskukoena** bilduma honetako Borges eta ni aitortza-apunte, hausnarketa bio-metafisiko, poema hitz-lauzko edo dena delakoan aurki daiteke Juan Garzia

3 ***bigarren eskuko*** lehenago besteren batena izan dena.

Nik behintzat ez nioke **bigarren eskuko** autoa Joan Ignasi Plari (PSPVko burua) erosiko. Berria - Mundua

Saihets ezinezko unea iritsi zenean, Brave New World eta haien maskota txikia **bigarren eskuko** Plymouth furgoneta batera igo ziren. Oskar Arana

Nire desiorik suharrena moto bat zen, berdin zitzaidan bigarren **eskukoa** eta zaharra izanda ere. Joxe Austin Arrieta

Ahaztua izango du bere aitatxok Mary's Lane kalean **bigarren eskuko** arropa-denda zuen garaia. Irene Aldasoro

Beste batzuk **bigarren eskuko** liburu-dendetan erosi zituen. Josu Zabaleta

Bigarren eskuko liburuen saltzailea, eta antzinako oinetakoen konpontzailea. Josu Zabaleta

Weasley andrea eta Ginny **bigarren eskuko** jantzien denda batera joan ziren. Iñaki Mendiguren

Bigarren eskuko bost tona arropa bildu ditu Consonnik, eta jantzi horiek erabiliko dituzte diseinu berriak egiteko. Berria - Kultura

Ze **bigarren eskuko** zerraldo ziztrin da hilkutxa garden hau? Harkaitz Cano

Bigarren eskuko salgaien denda bat zen hura, zoko guztietan barreiatuta eta sabaitik zintzilik zeuden traste zaharrez betea. Josu Zabaleta

Bigarren eskuko etxe babestua izateko ez da prezio makala. Patxi Iturritegi

Txuspok etxetik gertu judutar batek **Bigarren eskuko** gauzak saltzen dituela esan dit. Harkaitz Cano

-Kotxe bat ere eros nezakek, **bigarren eskukoa**. Xabier Mendiguren Elizegi

· *hed* Oparitu egin zidaten, eta honezkero laugarren **eskukoa** izango duzu motozikleta hori. Josu Landa

Auzorik urrunenak ziren, eremu basati eta arriskutsuak, gure arreba zaharrari ebatsitako **zazpigarren eskuko** "850" korrokoilean, kaka-kaka eginak inguratzen genituenak. Aingeru Epaltza

Aitak niretzat beste bizikleta bat erosi zuen, laugarren **eskukoa**, gure auzotik fabrikara lau kilometro baino gehiago baitzeuden. Jon Maia

Carmarthenen erosi ditiat, **bigarren eskuko** denda batean. Koro Navarro

· *irud* Herodianismoari dagokionez, beste gizarte bateko erakundeen eta ethosaren imitazioa da, **bigarren eskukoa**. Iñaki Mendiguren

Abdul zain geratu zen, esaneko, **bigarren eskuko** ogi ahitu harekin zer egin ez zekiela. Harkaitz Cano

Egungo jakituriaren zabortegiak gainez egiteraino betetzen dituzten esaldi akitu eta **bigarren eskuko** ideia horiek oro. Oskar Arana

Bigarren eskuko baizik ez nuen ezagutzen sekretua. Jon Muñoz

4 (-en deklinabide atzizkiaren eskuinean) mendeko, eskumeneko.

1530. urtean Karlos Kinto-k utziko du bere gisa Behenafarroa, Albretarren **eskuko**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Tsíui PÍn hil zen; inork ere, haren **eskuko** izan ziren lur zabaletan, ez zuen labirinto haren arrastorik aurkitu; nobelaren nahasmenak pentsarazi zidan bera zela labirintoa. Juan Garzia

Kanpalekuko diziplina guzia haren **eskuko** zen. Marzel Etxehandi

Eta nola hura baitzen, ordenazale itsuaz gain, zuhurra, ernea eta begi-zolia, eta nola, ondorez, haren **eskuko** izaiten baitzen, jauregiko martxaz denaz bezainbatean, bat bederaren egunorozko lanen eta sailen banatzea eta esleitzea, hala izan zituen egun haietan ere xehetasunik xeheenak kontuan. Joan Mari Irigoien

Abrahamek 318 zerbitzari bere **eskuko** bazituela. Piarres Xarriton

Banekielako ia erabat neure **eskuko** neukala neska. Matías Múgica

Libertatearen eskua zorabioaren **eskuko** izan ez zedin. Joan Mari Irigoien

Nahiz Jesu Kristo gure Jaunak ezarri naturaz gaindiko Jainko legeari esker ez den kristaurik Aita Sainduaren **eskuko** eliza boteretik osoki aske gelditzen denik. Piarres Xarriton

Nire bizitzaren zoriona bere **eskuko** zeukanak, berriz, daitekeen Krapotkinik benetakoena nintzela uste zuen, Goardia Inperialeko teniente haren, gorrotatzen nuen eta Lutezia nik baino lehen besarkatu zuen nire anaiorde gorrotagarri haren lehengusua. Matías Múgica

1902an hil zen, bere **eskukoengan** eta gustu oneko pertsonengan atsekabe hunkituak eraginez. Monika Etxebarria

Gure doktrinak badu, kasu horretan eta beste bakan batzuetan, galderoi erantzuteko leziabide eder edonoren **eskukorik**; lekuz kanpo legoke, ordea, hori hemen. Juan Garzia

· Neure alderdi pneumatikoa zen **eskuko** nuen abantaila bakarra. Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eskuko (5); **baten eskuko** (3); **bere eskuko** (17); **beren eskuko** (5); **beste eskuko** (6); **beste eskuko hatz** (4); **bi eskuko** (3); **bigarren eskuko** (63); **bigarren eskuko etxebizitza** (3); **bigarren eskuko liburu** (4); **bigarren eskuko liburuen** (10); **da eskuko** (3); **den eskuko** (3); **du eskuko** (4); **duten eskuko** (4); **edo eskuko** (8); **ere eskuko** (6); **ere eskuko mina** (3); **eskuin eskuko** (67); **eskuin eskuko erdiko** (3); **eskuin eskuko eri** (5); **eskuin eskuko eta** (7); **eskuin eskuko hatz** (27); **eskuineko eskuko** (6)

eskuko arazoak (3); **eskuko arazoak direla** (3); **eskuko atzamarrak** (3); **eskuko behatz** (6); **eskuko bi** (6); **eskuko bost** (4); **eskuko erdiko** (5); **eskuko eri** (5); **eskuko eri zuzena** (4); **eskuko eskailera** (3); **eskuko eta** (14); **eskuko eta eskuin** (7); **eskuko etxebizitza** (3); **eskuko etxebizitza baten** (3); **eskuko gaitz** (3); **eskuko hatz** (56); **eskuko hatz bat** (3); **eskuko hatz erakuslean** (3); **eskuko hatz lodian** (5); **eskuko hatz luzea** (4); **eskuko hatz nagia** (4); **eskuko hatz nagian** (4); **eskuko hatz txikia** (4); **eskuko hatz txikiko** (3); **eskuko hatzak** (10); **eskuko hatzaz** (3); **eskuko hatzekin** (5); **eskuko huts** (9); **eskuko hutsak** (7); **eskuko hutsak egin** (3); **eskuko informazioa**

(9); **eskuko izan** (3); **eskuko jarri** (3); **eskuko liburu** (4); **eskuko liburuen** (10); **eskuko min** (3); **eskuko mina** (21); **eskuko mina dela** (3); **eskuko mina du** (3); **eskuko minak** (6); **eskuko minarekin** (4); **eskuko minez** (14); **eskuko minez aritu** (4); **eskuko ordenagailu** (3); **eskuko ordenagailua** (3); **eskuko poltsa** (16); **eskuko poltsan** (4); **eskuko poltsatik** (5); **eskuko telefono** (3); **eskuko telefonoa** (7); **eskuko telefonoak** (5); **eskuko telefonoaren** (5); **eskuko telefonoaren bidez** (3); **eskuko telefonoari** (3); **eskuko telefonoentzako** (3)

eta bigarren eskuko (3); **eta eskuin eskuko** (11); **eta eskuko** (23); **ezker eskuko** (34); **ezker eskuko behatz** (3); **ezker eskuko hatz** (16); **ezkerreko eskuko** (6); **haren eskuko** (7); **kamara duten eskuko** (3); **lehen eskuko** (11); **lehen eskuko informazioa** (7); **nire eskuko** (3); **zen eskuko** (3); **zuen eskuin eskuko** (4); **zuen eskuko** (6)

---

eskukolpe *iz* eskuarekin emandako kolpea.

Haurrak ez duela ikusten? Ikusten ote dugu amodioa? Ez! Baina irriño, keinu, hitz goxo, fereka, elkartasun urrats edo **eskukolpe** batean sentitzen. Herria

---

eskukotasun *iz* eskuko izateko nolakotasuna.

Aberriari herritar guzien lankidetza beharrezkoa zaio -jarraiki zuen honek biloak hazkatu eta zintzurra karrakatu ondoan- eta ni etorria naiz etxaldeen ikuskatzeko eta jabeen **eskukotasunaren** frogatzeko. Elena Touyarou

---

eskulabur *(orobat **esku-labur**) izond* zikoitza.

Prestamista ere zela, hain abariziosa eta hain **eskulaburra**, non koberatzen baitzien bere bezeroei, interesetan, %10a, Kalvinek ezarri zuen %5eko mugaren gainetik. Joan Mari Irigoien

-Egundoko gizon **eskulaburra** zen, baina jende ona -buena gente, dio, argazkiari begira-. Edorta Jimenez

Zeren itsasoa infinitua eta mugagabea baita eta alde batetik kentzen diguna bertzetik emaiten baitigu... eta eskuzabala da eta **eskulaburra**, eta gaur bizi puska bat kentzen digu eta bihar bertze puska bat emaiten. Joan Mari Irigoien

Ez duk prokuradorea eta probintziako funtzionario **esku-labur** zeken horiek bezalakoa, haiek kopek bakoitza begiratzen ditek eta. Jose Morales

---

eskulan *(orobat **esku lan**)* **1** *iz* eskuz egiten den lana.

Haien idoloak, berriz, zilar eta urre dira, gizakien **eskulan**. Elizen arteko biblia

Esku-lana, ixiltasuna eta pobrezia horra nondik heldu diren komentuetako ospe eta goratasun egiazkoak. Xipri Arbelbide

Eskulana bizibide bezala. Askoren artean

Matson andreak onespenez begiratu zuen bere **eskulana**. Mirentxu Larrañaga

Industrializazio garaian sortu zen kooperatiba, landa eremuetatik **eskulana** industrialdeetara joan zen garaian, alegia. Berria - Ekonomia

Esku-lanaren gaindik omen dago buru-lana alegia. Patxi Ezkiaga

Apezak bere jana eta beztia atera detzala laborantzatik edo bertze zerbait **esku-lan** gisa denetik. Xipri Arbelbide

Julio gurekin geratu zen, handienekin, baina Adelak erakusten zizkigun frantsesa, musika eta **esku-lanak**. Juan Kruz Igerabide

-Hor aipatzen dituzun ofizioak **eskulanak** dira. Menane Oxandabaratz

Bakantzetako **esku lanak**. Herria

Haurren **esku lanak**. Herria

Beren **eskulanaz** ateratzen dute mantenua. Askoren artean

Obedientzia perfektuan, **eskulanean**, bakardadeko bizitzan eta kontenplazio santuan eredugarri izan zen guretzat. Askoren artean

Lan soldata apalak dituzten herrialdeak **eskulanean** intentsiboak diren produktuetan espezializatuko dira, eta soldata garaiak dituzten herrialdeak berriz, beren langileak beste modu produktiboagoan erabiliko dituzte. Iñaki Heras

Predikatu dugu Ebanjelioa, nihoren alderat zorrik egin gabe, gau eta egun **esku-lanetan** ariz. Xipri Arbelbide

Baina nahi zuena lortu ondoren, ahaztu egin zen hartutako mesedeaz: Santua ohoratzeari muzin eginez, honen jaiegunean **esku-lanetan** jardun zuen. Askoren artean

Baldar hutsa bainaiz **eskulanetarako**. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire haur denboran, eskolan, **eskulanetarako** buztinezko puska karratu batzuk erosten zizkiguten, material harekin gero geure gustuko irudiak sortzeko. Patxi Zubizarreta

Holako jendeak (jito, hunjaro, zingaro, buhame, agote) eragin erabatekoa izan du gure gizartean, bai merkataritza eta **eskulan** orotan (zurgin, arotz, zamargin, zapatagin...). Patziku Perurena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eskulan mugikorrak, marrazkiak, margolanak, collageak. Jesus Mari Mendizabal

Aramgoek zure **eskulan** ugariak erosten zituzten eta trukean esmeraldak, purpurazko oihalak, bordatuak eta lihozko ehunak, koralak eta errubiak ematen zizkizuten. Elizen arteko biblia

Herrialdean beharrezko baliabide fisikoak, **eskulan** merke eta motibatua eta lan egoera malguagoa baldin badaude, enpresa handi hauek hara joan daitezke Bangaloreko edo Sao Pauloko **eskulan** kualifikatuak. Iñaki Heras

Hormako paper horia zurezko **eskulan** krema-kolorekoen eta olio-pinturen marko urreztatuen artean ageri zen. Lopez de Arana

Frantziako marketeria; Ingalaterrako burdina forjatuko **eskulanak**; Italiako sabai-lanparak. Jon Muñoz

Ipar aldeko kualifikazio txikiko **eskulanak** baino egoera hobea izan dezake globalizazio prozesuari esker; lehen ez zen hori posible. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Industrializazioak **eskulan** beharra murriztu zuen erabat, eta orduan hasi ziren arazoak. Eskuz, ordenagailuaren laguntzarik gabe, lanak oraindik **eskulan** kutsua zuenean.Lan-araudiaren zurruntasunari, soldatamailaren eta **eskulan** kostuen zurruntasunari, edo, hobe esanda, ez jaisteko horiek duten zurruntasunari. Berria - Mundua

Herriko-etxe ondoan: **eskulan** erakusketa. Herria

Eskulan ikastaldiak abiatzen direla Iraila edo Buruilaren 13an, astelehenarekin. Herria

Eskulan industriaren hazkundeak -eta esportazio berrien sektoreak sortzen dituen beste lanpostu sortzeak ere- badu ekonomia osora hedatzen den beste efektu bat: [...]. Iñaki Heras

Gorabehera demografikoak, sorospen teknikak, **eskulan** premiak, langabezia maila ezberdinak. Xabier Arregi

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Argi ikusten da fabrikanteentzat haur **esku lanak** zuen interesa. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behin behineko eskulan (3); **behineko eskulan** (3); **eskulan bat** (3); **eskulan batzu** (4); **eskulan erakusketa** (6); **eskulan eta** (6); **eskulan merke** (5); **eskulan merke eta** (4); **eskulan merkea** (12); **eskulan merkeak** (3); **eskulan merkearekin** (3); **eskulan premia** (5); **eskulanak egiteko** (3); **eta eskulan** (7); **eta eskulanak** (5); **gizakien eskulan** (3); **zernahi eskulan** (3)

---

eskulangintza **1** *iz* eskulangilearen jarduna; eskuzko lanbideen multzoa.

Gaia: euskal pilota eta hunen inguruko **eskulangintza**. Herria

Goizeko 10etatik arratseko 7ak arte Sénégal, Niger, Maliko **eskulangintza**. Herria

Eskulangintzak definitzen badu gizona, gu ez ginen halako: jabeturik geunden horretaz, eta mingarri zitzaigun.Lanbide zintzo eta tradizionalak betiko galtzea ekarriko du horrek, **eskulangintzan** diharduena dirudunarentzat ohi dabilelako. Juan Garzia

Pierra **eskulangintzan** trebe zen. Itxaro Borda

Ekologikoa guztiz, **eskulangintzaren** kontzeptutik hurbil. Aingeru Epaltza

Folklorearekin lotutako narrazioak jasoko dituzte, eta baita dantzekin, **eskulangintzarekin**, gastronomiarekin edo jantziekin lotutakoak ere. Berria - Harian

Alabaina, Ricardoren esanen kontra, herrialde hauek ez ziren luzaroan **eskulangintzara** mugaturik geratu. Koro Navarro

Suspertu zuen merkataritza, indarra eta irteera berriak eman zuen **eskulangintzari**; loratu berriz zuen arteak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Softwarea bihurtu ote da mende berriko musikagintzaren **eskulangintza** digitala? Berria - Kultura

Ekitaldi horretan Blas Arratibel **eskulangintza** lehiaketako sariak ere banatuko dituzte. Berria - Kultura

Eskulangintza azoka eta tailerrak antolatu dituzte, eta astelehenean, berriz, apirilaren 17an, nekazari gazteen azoka eta produktuen salmentarekin amaituko da. Berria - Kultura

2 irud/hed

Hanka-arteko koskorretatik darion maitasuna zeinek jasoa falta eta bakarlanean, **eskulangintzan** edo autonomo gisa aspertua dagoen gizasemea putatara joaten da. Iñaki Segurola

---

eskulapio ik **eskolapio**.

---

eskulari *iz* eskuzko jokalaria.

Gure **eskulariak**, segur, trenpu onean ditugu. Herria

Eskularien berriak, kausituko dituzue pilotako berrietan. Herria

Huna beraz, gure lehen maileko **eskulariek**, Bonnetbeltx eta Etxebarnek, eskutan zuten partida galdu dutela. Herria

Eskulari batasuna ere ari da pilotaren alde, Lehuntzeko parte horietan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gure eskulariak** (9)

---

eskularru *iz* *(ETCn **2.103** agerraldi; orobat **eskunarru**)*

28 agerraldi) 1 eskua eta batzuetan besoaren zati bat estaltzen duen jantzia, berez larruzkoa, eskuaren eta eskuarki behatzen formara egokitzen dena. ik eskuzorro. Josu Zabaleta

Beharbada eboluzio natural bat izan da: oroitzen ez garen arren, umetan hatzak ere elkarri itsatsita geneuzkan eta hatzak hazi eta banandu ahala bihurtu zaizkigu eskuzorroak **eskularru**, ez baitut etxean manopla zaharrik inon atzeman. Harkaitz Cano

Igogailuan sartzean **eskularruak** jantzi zituen. Lopez de Arana

Eskularruak eta kaskoa erantzi, anorak urdinaren kremailera zentimetro batzuk jaitsi eta zain geratu da. Pello Lizarralde

Henrikek txanpon bat ematen zion kotxezainari, kale isilean gelditzen zen, atari zaharraren aurrean **eskularruak** kentzen zituen, giltza bilatu, eta berriro bere lagunari traizio egin izanaren sentsazioa izaten zuen. Xabier Olarra

Galdu egin ditut nire **eskularruak**. Josu Zabaleta

Beheitixeago, eguzkiak argitutako **eskularru** bat ikusi nuen, eta ezin hobeki ohartu nintzen **eskularrua** ez zegoela bakarrik, barrenean gizon baten eskua zegoela, eta eskua ez zegoela bakarrik, beso batean baizik, eta besoa, berriz, hondakin haien azpian hor nonbait zegoen gizaseme baten gorpuan. Fernando Rey

Patrika bakoitzean **eskularru** bat, aparatosoak baitira **eskularru** hauek. Harkaitz Cano

Zauriaren minak eta soinuaren harridurak bultzatuta, jarria zuen **eskularrua** erantzi zuen. Askoren artean

Kautxu gorrizko **eskularruak** sukalderako. Juan Kruz Igerabide

Hastetik trinketetan **eskularruarekin**, pasakan bezala, hasi ziren, gero esku huskara etorri, orduan baitzen sortu trinketeko jokoa, partikulazki Iparraldean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gidariak **eskularruen** kutxa ireki zuen, kasete bat atera, eta irrati-kasetean ipini zuen. Juan Kruz Igerabide

Alaba **eskularruetako** botoiak lotzen ari zen espaloian. Monika Etxebarria

Kartazal beltz bat luzatu zion kolore bereko **eskularruan** ezkutatutako eskuak. Joxemari Urteaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

«**Eskularru** zuriko xantaia» deitu zion Barrenak. Berria - Euskal Herria

Sarjentuak, orduan, **eskularru** beltza erantzi eta jakaren barruko patrikara sartu zuen eskua. Harkaitz Cano

Larruzko **eskularru** beltzak jantzi eta berokiaren lepoak igo ditu. Eider Rodriguez

Ellen antxume-larruzko bere **eskularru** berrien erpuru urratua hatz erakusleaz igurtzitzen ari zen, urduri. Lopez de Arana

Ellenek lepo labur eta sudur zapaleko gizon baten esku handiari oratu zion eta gero, haren emaztearen **eskularru** txiki apainari. Lopez de Arana

Bennettek berehala ekin zion lanari, **eskularru** esterilak jantzirik. Xabier Olarra

Sarjentua autoko leihatilaren parera heldu eta agur egin zidan, **eskularru** lodiz bilduriko eskua kasko ertzera eramanda. Alberto Ladron Arana

Eskuak dindilizka zeuzkan **eskularru** hutsen modura. Lopez de Arana

Prest nengoen bi **eskularru** diferenterekin ibiltzeko. Harkaitz Cano

Nahikoa du jardutea, eskuak **eskularru** barrubigunduekin babestuta, nonbait eskegitako zerrakin-zaku batekin edo baloi batekin. Koldo Biguri

Dantzariak kapela hegal-zabal bat zeraman, estilo florentziarrekoa, ukondoetaraino iristen zitzaizkion **eskularru** zuri artilezkoak, zeta arrosako soineko estu bat eta saten beltzezko zapatak. Xabier Olarra

Plastikozko **eskularruak** erosi. Harkaitz Cano

Robertok, artean, txalekoko patrikatik latexezko **eskularru** parea atera eta hizketan jarraitu zuen, aulkian lotuta jarraitzen zuen mutikoaren inguruan. Harkaitz Cano

Zakur bati boxeoko **eskularru** pusketa bat eskaintzen ari zitzaion. Harkaitz Cano

Bidaia zentzugabera abiatuko da ikuslea, **eskularruzko** txontxongiloen paradisu ezezagunera. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hodei zurien zurrunbiloak eta dorretxoak igarotzea eguzki bero eta argitsuz beteriko auto batean, gozoki-pakete handi bat **eskularru**-kaxan, eta gainera Freden eta Georgeren inbidia-aurpegiak ikusteko itxaropena. Iñaki Mendiguren

Hartu mujik errusiar bat, eraman ezazu Kamtxatkara, eta emaiozu **eskularru**-pare beroa: hatzak klaskatu, aizkorari heldu, zuhaitz batzuk moztu, eta izba berria eraikiko du berehala. Jose Morales

Vienan pasatzen ziren leku guztietan ezagutzen zuten, denda guztietan: **eskularru**-dendan, atorra-dendan, jostundegian. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sarrera-gelan neure ofizial-**eskularruak** eta neure ofizial-boneta janzten ari nintzela, berriro deitu zioten leihatilara: klarionaren pare zurbildu zen Hanna. Joxe Austin Arrieta

Garai batean nahikoa zen hori: egunkari orrialdeetan bildutako boxeo **eskularru** gorriak, gorri hori gerezietan bakarrik ezagutzen zuen gazte xaloaren eskuetan, entrenatzailearen opari. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere eskularru (4); **eskuak eskularru** (3); **eskularru bat** (10); **eskularru beltzak** (4); **eskularru eta** (3); **eskularru kaxan** (3); **eskularru luzeak** (3); **eskularru pare** (8); **eskularru pare bat** (3); **eskularru zuri** (3); **eskularru zuriak** (5); **eskularru zuriko** (3); **eskularruak erantzi** (4); **eskularruak ere** (4); **eskularruak eta** (13); **eskularruak eta sakelako** (3); **eskularruak jantzi** (6); **eskularruak jantzita** (7); **eskularruak kendu** (3); **eskularruak kendu eta** (3); **eta eskularru** (11); **eta eskularruak** (11); **gomazko eskularruak** (3); **nire eskularruak** (4)

---

eskularrugile *iz* eskularruak egiten dituen pertsona. ik **eskularrugin**.

Aurrekoen ondoren, hor dira zaindari babesa eske, liburu konpontzaile eta koadernatzaileak, hor dira **eskularrugileak**, eta baita jostun gizonezkoak ere. Pello Zabala

---

eskularrugin *iz* eskularruak egiten dituen pertsona. ik **eskularrugile**.

Geroago, bere lanbidean fin-fin trebatu zen, ordurako Jehanneton txanogin, Perrenette gobadagin eta Ysabeu **eskularrugin** bilakatuak baitziren, eta Guillemette, zoriontsuena, hestebetegin, txerri-odol freskoz igurtzi baliote bezala distiratzen zuèn aurpegitxo gorrimin baten jabe izaki. Juan Garzia

Katherine alderrai ibiltzen zen **eskularruginaren** eta txanoginaren denden aurretik, eta sarri askotan han geratu zen luzaro hestebeteginaren aurpegi odolkoloreari bekaitzez so, hark barre egiten zuela bere txerri-okelen artean. Juan Garzia

---

eskulehor *izond adkor* zekena.

Gauzak nolakoak ziren esateko, Filotti hau kea ere emango ez lukeen zeken **eskulehor** horietako bat zen, eta lira bat aterarazteko senperrenak egin behar izaten ziren; alabaina, Bruciatako jabeen makina bat erabili baino lehen, nahiago zuen hiru aldiz gehiago gastatzea, eta urtero-urtero lekutatik ekartzen zuen traktore bat. Koldo Biguri

---

eskuleku *iz* eskuaz erabiltzen diren lanabesei eta beste gauzaki batzuei heltzen zaien atala. ik**eskutoki; gider; kirten**.

Kolore urdineko oihalez egindako maleta da, gurpilak ditu eta **eskulekua** ere bai. Berria - Mundua

Batzuk eskailera mailetan jarri ziren, **eskulekuei** helduta, besteak trenaren babesetan eseri ziren. Josu Zabaleta

Egunero aurkitzen ditu barazkiak han edo hemen, eta bere bizikletan ekartzen ditu, poltsa handitan **eskulekutik** zintzilik. Josu Zabaleta

Zaldia, isiltasunak gogaiturik, urduri jarri eta jolaserako gogoa erakusten hasten zenean, zigorraren **eskulekuaz** jotzen zuen, isilik. Jose Morales

Egoera horretan, **eskulekua** gontzetatik hurbil lukeen ate bat irekitzea bezalatsu da besaurrea goratzea: indar handia egin behar da. Irene Aldasoro

Haztamuka, atearen **eskulekuari** heldu dio. Itziar Otegi

Eskailera estuan gora abiatu zen gure aurretik, nekez, burua -makurtua- barandaren **eskulekua** baino askoz gorago iristen ez zitzaiola. Irene Aldasoro

Budin zuri zatiz eta marmelada gorriz beteriko plater zapal bat; Anaia txikienak kargatzen zituzten esne marmitak bizikletaren **eskulekuan**, eta pozik eta txistuka abiatzen ziren herriko plazarantz. Irene Aldasoro

Berriz irteteko imintzioa egin zuen ateko **eskulekuari** helduta. Josu Landa

Bizikletako **eskulekuan** saski bat lotuta neukan eta handik mailu-pikotx bat atera nuen. Koldo Biguri

"Oraingo kontuak", dio bere artean, eta poltsako **eskulekuak** ahal bezain tinki estutuz, badoa bere bidean aurrera. Iñaki Segurola

Horra zergatik, baserriko lanabes guzientzako, hurritzezko kiderrak, kirtenak, euskarriak, **eskulekuak**. Patziku Perurena

Besoa altxatu nuen eta trenmakinaren sabaitik zintzilik zegoen **eskuleku** moduko bati heldu nion. Fernando Rey

---

eskulekudun *izlag* eskulekua duena.

Beltza da armadura eta urre gorrizko pinportak ditu; urrezko **eskulekudun** ezpata ezkerrean dago atzeraka alboraturik; arrosa koloreko zerrenda bat ageri da soin bueltan; bizar zorrotza, geziburua balitz bezala, eta sudurra judu arrazaren ezaugarri. Felipe Juaristi

---

eskuliburu **1** *iz* eskuan erabiltzeko liburua, eskuarki gairen bati buruzko hastapenak edo argibide beharrenak dakarzkiena.

Krestomatiak, antologiak, edizio kritikoak, **eskuliburuak**, separatak, kantutegiak, poesia klasikoaren edizio elebidunak, [...]. Anjel Lertxundi

Mobbing motak, jazarleen ezaugarriak, eta jazarpena jasaten ari direnen sintomak laburbiltzen ditu **eskuliburuak**, eta 10.000 ale banatuko dituzte 10 eta 50 langile bitarteko enpresatan. Berria - Ekonomia

Le Manseko etxean, berriz, pistola bat, Espainiako gidabaimen bat, nortasun agiri faltsuak, trokelatu gabeko Frantziako matrikulak, ETAren **eskuliburu** bat, eskuko ordenagailu bat, baliza detektore bat eta 30.000 euro. Berria - Euskal Herria

Erabaki sendoa harturik zegoela dio, euskaldun emakumeentzat etxe inguruko lorategiak zaintzeko **eskuliburu** bat egiteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mezua utzi ahal izan diot Latineko **eskuliburuaren** gainean. Iban Zaldua

Merkantilismoa -aberastasuna metal bitxien pilaketarekin lotzen duen doktrina protekzionistara mugatua ekonomiako **eskuliburu** gehienetan-, ororen gainetik, barne-merkataritzaren liberalizazio-mugimendu zabala izan zen. Koro Navarro

La Chacra aldizkariaren ale sorta bat, albaitaritzako **eskuliburu** bat, Tabaré ale luxuzko bat, *Historia del Shothorn en la Argentina* delakoa, kontaera erotiko nahiz poliziakoren bat edo beste eta berrikitan argitaraturiko nobela bat. Juan Garzia

Haren hitz egiteko moduak Agirre Asteasukoaren sermoiak gogorarazten dizkik batzuetan, Leninen aipuak bestetan, eta ekonomia neo-liberaleko **eskuliburuak** beste zenbaitetan. Pedro Alberdi

Lanbide Heziketarako **eskuliburuak** euskaraz. Berria - Euskal Herria

Leihoak barrualdean zuen arasan, bi liburu, artean zabaldu ere egin ez zituenak: Ithurralderen *Pierre Topet-Etxahun* eta Gabriel Arestiren *Harrizko herri hau,* suomiera ikasteko **eskuliburu** alemaniar baten aldamenean biak. Harkaitz Cano

García Salve jesuitak idatzitako **eskuliburu** bat zen, *Yoga gazteentzat*, argazki askorekin, non yogiak ageri baitziren gorputz-jarrerarik harrigarrienetan. Juan Kruz Igerabide

Ez zuen zientzia fikziorik irakurtzen, ez eta zientzia hutseko **eskulibururik** ere. Javi Cillero

Testu-liburuak, entziklopedietako sarrerak, **eskuliburuetako** *(handbooks)* sarrerak. Jo beza interesdunak aipatu FISCHER-JØRGENSEN-en liburu zinez gomendagarrira eta, beranduagokoetarako, KENSTOWICZ (1994), GOLDSMITH (1999) eta besteren antologia edo **eskuliburuetara**. Askoren artean

Konfesoreen ***Eskuliburua*** da dudarik gabe Azpilkuetaren liburu hoberena, argiena eta ordenatuena. Piarres Xarriton

Gorpuzgabea erraten dut, erakusteko bereizten dela gauza gorpuzkin guztietarik eta gaitzesteko gure **Eskuliburuko** 3. artikuluan aipatzen ditugun filosofoak eta heretikoak, erran izan dutenak haize eta aire dela arima. Piarres Xarriton

Galdeketaria Fossa zenean, nahikoa ondo zihoan kontua: ordura arte topatu ez nuen moduko giza alea zen, **eskuliburuko** faxista bat, ergela eta adoretsua. Juan Garzia

Egoera zehatz eta segurua zuan, **eskuliburukoa**, egunkariek urtero-urtero hizpide izan ohi duten "istripu tragiko"rako. Xabier Olarra

2 irud/hed

Katua, jakituriaren eta isiltasunaren **eskuliburu** hori, hor izanen da kutxa zaharraren gainean, bere bi begi nabarrak argi. Joseba Sarrionandia

Xalak lau t'erdian egin beharreko jokoaren **eskuliburua** ezin hobe jarraitu zuen. Berria - Kirola

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Eskuliburu egokirik ez zegoela eta, irakasleak apunteak emango zizkigula abisatu zigun lehenengo egunetik.-Ekarri orduan agintari militarren zerrenda, lur- eta itsas armadako urtekaria, eta dauzkazun **eskuliburu** militar guztiak. Iban Zaldua

Sexu-heziketako **eskuliburu** lodikote bat eskuratu nuen nonbait, aitonaren liburutegian. Karlos Zabala

Inor ez zen hirugarren edo laugarren mailako idazle izatetik pasatu, eta egun, asko jota, oin-oharren bat baino ez dute merezi espainiar literaturari buruzko **eskuliburu** mardulenetan, eta batzuen kasuan, ezta hori ere. Iban Zaldua

Alferrik bilatuko dugu haren izena hango literaturari buruzko **eskulibururik** garrantzitsuenetan. Koldo Biguri

Esan bezala, hainbat eta hainbat **eskuliburu** eta liburu ospetsutan ateratzen den aipua da. Iñaki Heras

Ladefoged-en *A Course in Phonetics* **eskuliburu** ezagunaren argitalpen zaharrenetan bokalak hurbilkarien zerrendan agertzen dira liburuaren azkeneko hiztegian. Lourdes Oñederra

Politikazko **eskuliburu** klasikoetan gobernu ezberdin motak bereizten ziren, bakarraren, zenbaitzuen ala herriaren eskuetan boterea emaiten zen arabera, hots, monarkia, oligarkia, demokrazia bereiziz. Piarres Xarriton

Laster batean ideiaz jabetzeko, lagungarri gerta dakiguke FRY-k (1982) bere akustikazko **eskuliburu** guztiz gomendagarrian erraz eta egoki azaltzen duena. Lourdes Oñederra

Bazebilen militanteen artean **eskuliburu** gisako bat, komisariatik pasatu behar genuenerako prestatu nahi gintuena. Agurtzane Juanena

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alkimia-**eskuliburuen** hizkera konplexu hark iragartzen zuenetik ezertxo ere ez zen gertatzen ari. Xabier Aranburu

Kontua da, Pabeko artxibategia arakatzen ari nintzela, latinezko medikuntza-**eskuliburu** batzuen berri ematen zuten fitxen artean zerbait bitxia topatu nuela, J. Etcheberri delako baten ikasketa-memoria bat zirudiena. Iban Zaldua

Zer ekoitzi galderari erantzun behar eta, ekonomia **eskuliburuetako** adibideei jarriki, horrenbeste kanoi edo horrenbeste gurin erabaki behar da. Iñaki Heras

Zabalkundeko psikoanalisi **eskuliburuak** ez dira, jakina, zakurrentzat eginak, eta aspaldi ezagutu nituen nik neurosi horren arrazoiak. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)
buruzko eskuliburu (3); **eskuliburu bat** (11); **eskuliburu batean** (3); **eskuliburu eta** (4); **gure eskuliburuko** (5); **konfesoreen eskuliburua** (4)

---

eskulotu, eskulot(u), eskulotzen **1** du *ad* norbaitez mintzatuz, hari eskuak lotu.

Ihesginak estrangulatu egin nahi izan du, baina alargunak ileko gantxoarekin mehatxatu eta **eskulotu** egin du Aurre egiten zaienean koldar nazkagarriak baino ez dira. Koldo Izagirre

Karitate horrek ez zuen apalarazten hartzailea, eta ez zuen esker onaren kateez **eskulotzen** ere, ez baitzen beretzat, Jainkoarentzat baizik, oparia. Josu Zabaleta

Eskumutur biak heldu zizkion samurki Martak Patakiri, oheburuan izara hautsi batekin **eskulotzera** balihoa bezala. Harkaitz Cano

Seinale baten zain balego bezala, gizonak kate bat askatu du, orduan buelta hartu du bikote txortalariak, neskari eskuak lotu dizkiote katez atzean, eta bien artean jaso dute, **eskulotua** eta errukigabe uzkiratua. Juan Martin Elexpuru

Azkenean lokamuts bihurrikatu horretatik askatzean, lurrean egotzirik eta **eskuloturik** harrizko aurkitu nuen neure burua. Juan Garzia

2 irud/hed

Bideetako galeriano eta ildoen esklabo izan diren hauek, idien nahiz mandoen atzetik beti, zerua beste esperantzarik gabeko patuari **eskuloturik**, nola sumatuko zuten ba, beren askaziaren zorian halako bide-okertze bat? Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskulotukeria *iz* eskulotze gaitzesgarria.

Eta **eskulotukeria** hori konprenitzen dudala iruditzen zait: Erromako Elizak ezin ditzake bere martiriak gaitzetsi, kartaz osatutako gaztelu bat bailitzan gainbeheratu nahi ez badu, behintzat. Hasier Etxeberria

---

eskulpitu, eskupi(tu), eskulpitzen **1** du *ad* zizelkatu.

Helenismoaren garaiko horma-margo edo mosaiko askok badute halako marko margotu bat, batzuetan, hala ere, **eskulpitua**. Josu Zabaleta

Museoetan erakusteko jarrita egoten diren koadroek ia nahitaez izaten dute horrelako marko-objektu bat, askotan, hala ere, apaindua, **eskulpitua** edota urreztatua ere izan daitekeena. Josu Zabaleta

2 (era burutua izenonodo gisa)

Gentile da Fabriano-ren *Errege magoen adorazioa* (1423), koadroaren goiko aldean, moldura urreztatu eta **eskulpituan** egindako "arkupeetan", errege magoen gurtza bera baino lehenago izandako hiru gertaera ageri dituena. Josu Zabaleta

---

eskultore *(ETCn **3.794** agerraldi)* **1** *iz* zizel lanak egiten dituen artista. ik **zizelkari**.

Azken aldiko euskal artea aukeratu genuen gaitzat (1960-1980): lanaren ardatza margolari eta **eskultoreei** egindako elkarrizketak izango ziren. Iban Zaldua

Ez du musikaria izan behar, Aristoxenoren pare, baina ezta musikan ezjakina ere; ez Apelesen mailako pintore, baina lapitzarekin ez du trakets izan behar; ez du **eskultorea** izan behar, Miron edo Polikleto izan ziren bezala, baina plastikaren arloan ezjakina ere ez Ni ez naiz **eskultore**, zeren **eskultore** edozein izan baitaiteke, baita hiru harri bata bestearen gainean jartzen dituena ere. Santiago Iruretagoiena

Sebas Larrañaga **eskultoreak** egingo du eskultura, brontzez eta granitoz, eta tamainu naturala baino handixeagoa izango da. Berria - Kirola

Julio Sanz musika sortzaileak eta Fernando Buenache **eskultoreak** kontzertu-instalazio bat egingo dute. Berria - Kultura

Donald Judd estatubatuar **eskultorearen** erakusketa eskainiko du Londresko Tate Modern galeriak, bihar hasi eta apirilaren 25a bitartean. Berria - Kultura

Aintza eman diogu Oteiza **eskultoreari**, baina Oteiza filosofoa ez dugu aintzat hartu. Joxerra Garzia

Telebistan hondartza irudiak agertu dira, Rio de Janeiroko hondartzan izotzean **eskultore** den Nelson Oliveira aurkeztu dute. Joseba Sarrionandia

Guti dira haren funtseko eta irudimen samurreko **eskultoreak**. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bilduma iraunkorreko artelanekin osatutako *XX. mendeko* ***eskultore*** *handiak* izeneko erakusketara batu zen jende gehien: 766.379 lagun, guztira. Berria - Kultura

Iparraldeko kanten leloak datozkigu beti burura, eta Aleijadinho **eskultore** barrokoa, eta sanba eskolak, futbola, inauteria eta São Pauloko makarroiak. Karlos Zabala

Biluzik zegoen nire ametsean eta bere soin paregabea **eskultore** greziar eta erromatar onenek ere ezingo zuketen irudikatu. Aitor Arana

Espacio Marzana galerian ikusi nuenean esperimentatzeko gogoa igerri nion ordura arte **eskultore** espresibo eta aldi berean klasikoa zenari. Berria - Kultura

Gainerako gorputz-adarrek ere proportzio-erlazioa gordetzen dute, eta horretaz baliatu ziren pintore eta **eskultore** ospetsu guztiak, eta izen eta entzute handia lortzera iritsi ziren. Santiago Iruretagoiena

Zortzi euskal **eskultore** eta margolari ezagun horien ehun bat artelan propio bildu dituzte. Koadroak erakusten zuèn neke eta atsekabe hura igarri nion Pedrori berari ere, betarte izerditsuan **eskultore** izengabe batek oinazearen iduria zizelkatu balio bezala. Berria - Kultura

Haren aurpegia eta betartea, exagerazioaren eta soberaniaren keinu hartarat bildua, **eskultore** anonimo batek gorputz hartan izuaren arima zizelkatu balu bezala, supituki eta deblauki...! Joan Mari Irigoien

XX. mendeko **eskultorerik** iraultzaile eta berritzaileenetakoa izan zen Constantin Brancusi artista (1876-1957). Berria - Kultura

Xabier Laka **eskultore** adiskideari, berriz, oso gustagarri egin zitzaion bolatzarraren eta inurriaren arteko kontrastearen plastikotasuna. Joxerra Garzia

Aski ezaguna da Arizkungo seme Xabier Santxotena, **eskultore** eta sukaldari sonatua. Patziku Perurena

Barnean dagoen erakusketa Oteiza handiaren obrez osatua da, bai Oteiza euskal **eskultore** aintzindari famatuaren lanen bilduma bat Haize Berrin ikusgai. Herria

Fredeik Bartholi: New Yorkeko (AEB) Askatasunaren estatua egin zuen **eskultore** frantsesa. Berria - Gaiak

Aipa daiteke, bere genealogia interesgarriagatik, 1893an Adolf Hildebrand alemaniar **eskultore** eta arte-historialariak argitaratutako teoria. Josu Zabaleta

Antzinako **eskultore** eta pintoreengan antzematen da hori gehien, zeren eta horien artetik, aitortutako merituak eta estimazioa zituztenak ondorengo guztion oroimenean geratu baitira betiko, hala nola Miron, Polikleto, Fidias, Lisipo eta beste hainbat, artearen bidez beren ospea lortu zutenak. Santiago Iruretagoiena

20.garren mendeko euskal margolari handienetarik bada Jose Anton Sistaga, bere lekua dauka ere Youri Sistiagak gaurko **eskultore** onenen artean. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskultore hitzak berak hori esan nahi du, eskuekin landu, ezta? Berria - Kultura

Bi lantegiak pintore eta **eskultore** talde batek erabili zituela Ruche jauna haien jabe izan aurretik. Jon Muñoz

Bisitariek Izuratik Bunuzerat egiten ahalko dute ere jauzi bat, sei artisten margolan eta **eskultore** erakusketa bat antolatua baita han, hiru toki desberdinetan: Errekaldean, Urrutigaian eta Intxausetan. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Andoaingo Garate Estudiosen grabatu dute, Kaki Arkarazo «soinu **eskultorearekin**». Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta zizelkari (3); **eta zizelkarien** (4); **harri zizelkari** (3); **jorge oteiza zizelkari** (4); **margolari eta zizelkarien** (3); **oteiza zizelkari** (5); **zizelkari artista** (3); **zizelkari eta** (6); **zizelkari famatuaren** (3); **zizelkariak eta** (3); **zizelkariaren obrak** (6); **zizelkariaren obrak dira** (3)

---

eskultoriko *izond* eskulturarena, eskulturari dagokiona.

Erakusketan Arrese Beitiaren poemak ez ezik eskuizkribuak eta lehen edizioak egongo dira, besteak beste, berak sortutako lan **eskultorikoak** ezagutzeko aukera ere izango da. Berria - Kultura

2001ean ekin zion Vital Kutxak Araban ibilbide **eskultoriko** bat sortzeko lehiaketa antolatzeari. Berria - Kultura

Orduan zer da? Eskultura baten argazkia? Argazki **eskultorikoa**? Berria - Kultura

Are gehiago, paisaia **eskultorikoa** dela esango nuke. Berria - Kultura

Artzainen adorazioa Alonso Canorena dela sinetsita dago Navarrete, «azterketa erradiografikoen bidez ikusi ahal izan ditugun pigmentuengatik eta giza figuraren izaera **eskultorikoagatik**». Berria - Kultura

Marrazkiek laguntzen dituzte eskulturak; «Paper gainean tintaz eginiko marrazki **eskultorikoak** dira», egilearen hitzetan. 'Ez zait wagnerismo **eskultoriko** hori gustatzen', esan dit. Berria - Kultura

---

eskultur ik **eskultura**.

---

eskultura *(orobat **eskultur**, g.er., hitz elkartuetan lehen osagai gisa)* **1** *iz* sakonera duten irudiez edo formez baliatzen den artea. ik **zizelkaritza**.

Garai batean pintura eta **eskultura** elkarren osagarri ziren. Xabier Olarra

Oteizak **eskultura** uzteko asmoa agertu zuen berrogeita bat urterekin, arrakastaren apar gozoak bizitzen ari zenean. Anjel Lertxundi

Nekez uler daiteke **eskulturaren** historia zaldizko estatuarik gabe. Anjel Lertxundi

Mendebaldeko jeinu artistikoaren antzutzea aurrekoa bezain nabarmena izan zen pintura eta **eskulturaren** eremuetan ere. Iñaki Mendiguren

Istorio arraro berbera, [...] Mendebaldeko ikus-artearen hiru arlo horietako bakoitzean errepikatzen da, baina hiruretako gertakaririk harrigarriena*revenant* heleniko batek Mendebaldeko bertako jeinuaren gain lortutako arrakasta izan zen **eskulturaren** arloan oro har. Iñaki Mendiguren

Garai hartan, bestalde, **eskulturari** ekin zion; lehen sekula landu ez zuen alor bati, alegia. Xabier Olarra

Laburbilduz esan daiteke Arantzazuko esperientziaren ondoren **eskulturan** eta pinturan nagusitu zen euskal artea 60ko eta 70eko urte haietako gizartearen zentzu heroikoarekin ondo zetorrela. Joseba Zulaika

Ertaroko **eskultura** espainiarreko sinbolismoa. Patziku Perurena

Oteiza **eskulturatik** erretiratu zen bezala, hi poesiatik? Iñaki Iñurrieta

Eskultoreak *Propósito experimental 1956-57* arte bilduma eraman zuen Brasilera, hogeita zortzi artelan, denetara, eta Nazioarteko **Eskultura** Sari Nagusia irabazi zuen. Berria - Kultura

Valladolideko **Eskultura** Museoa eraikitzen hasi gara, Kordobako Medina Zaharako arkeologia guneko Museoa hastear dago. Berria - Harian

2 (hitz elkartuetan)

"Erresuma Zaharreko" **eskultura** eta pintura-estiloaren berpizkundea, bi mila urteko tartearen ondoren, saita aroan azkenaldiko mundu egipziakoan K.a. zazpigarren eta seigarren mendeetan. Iñaki Mendiguren

Valladolideko **Eskultura** Museoa eraikitzen hasi gara, Kordobako Medina Zaharako arkeologia guneko Museoa hastear dago. Berria - Harian

Mendizabalek goraipatu du Oteiza gaurko euskal kulturgintzaren aintzinbidari zena, pilota guziz gogoan omen zuen harek; hots, haren idazlanetan eta **eskultur**-ereduan bermatuz obra nasaia eta bolumen geometrikoen estetika adierazi du. Herria

Mendebaldeko bertako kristau-**eskulturaren** Alpeez bestaldeko eskola batek azken kantu isila abesten du ezpain izoztuen artean. Iñaki Mendiguren

3 eskultura lana.

Grezia arkaikoko lehenengo **eskulturak** idoloak ziren. Josu Zabaleta

Omenaldian une nagusia Igariko errepidea egin zuten 2.000 antifaxistei eskainitako **eskultura** inauguratu zutenekoa izan zen. Berria - Euskal Herria

Pintura eta **eskultura** ez ezik, bideoa eta argazkia ere lantzen dute egungo artistek. Berria - Kultura

Eskulturak, marrazkiak eta argazkiak nahastu ditu Pello Irazuk 'Let it bleed' izeneko erakusketan. Berria - Kultura

Napolin bizi nintzela, askotan joaten nintzen Ponpeiako pinturak eta **eskulturak** gordetzen dituen museora. Bernardo Atxaga

David **eskulturaren** 500. urteurrena irailaren 8an ospatuko dute. Berria - Kultura

Paseo Berriko talaiatik pasa ziren, Jorge Oteizaren *Eraikuntza Hutsa* **eskulturaren** aurretik. Fernando Morillo

Reina Sofíara inguratu nintzen, ohi bezala Chillidaren **eskulturak** ikustera. Ramon Saizarbitoria

Antzinako artistek beren **eskulturak** pintatzen zituzten. Xabier Olarra

Irabazleek diru saria jasotzen dute, eta Imanol Andonegik egindako **eskultura**. Berria - Gaiak

Logela iluna zen, koadroz, **eskulturaz** eta irudi txikiz josi-josia. Karlos Zabala

Eskulturak txakur bat eta gizon bat irudikatzen ditu. Eskarne Mujika

Plazaren erdian [...] Nicolò Tomasseo politikari eta idazlearen **eskultura**. Anjel Lertxundi

Bakarrik dago **eskultura**, inguruan ez du beste ezer, ez neukan ez kontzentratzeko aitzakiarik. Anjel Lertxundi

Egia esatera, Dabidek egun hartan ekarri zuen **eskulturak**, artelana baino gehiago, buztin puska karratu haietako bat zirudien. Patxi Zubizarreta

Carlos Lopez de Ceballos **eskulturaren** egilearen esanetan, fusilatuak izan behar dutenak «gogor egiteko jarreran» daude, eta ez kikilduta. Berria - Euskal Herria

Antzinateko **eskulturetan** eta pinturetan maiz azaltzen da sugea. Gotzon Garate

Demeter Chamine emakume apaizaren **eskultura** dago han. Berria - Kirola

Artista gazteen lanetan espezializatu zen, margo-lanetan batez ere, baina baita **eskultura** eta instalazioetan ere. Oskar Arana

Zaila da elizaren balioan edo Donatelloren **eskultura** eta erliebeetan arreta jartzea. Anjel Lertxundi

Sebas Larrañaga eskultoreak egingo du **eskultura**, brontzez eta granitoz, eta tamainu naturala baino handixeagoa izango da. Berria - Kirola

Sinetsita nago **eskultura** abstraktua bakar-bakarrik natura erdian egon daitekeela. Berria - Kultura

Plazaren erdian, erresistentzia gogorarazten duen brontzezko **eskultura** handi samar bat, alpino jantzian dauden soldadu batzuekin. Anjel Lertxundi

Eskultura txikiz osatutako multzoak. Berria - Kultura

Elizan daude Colette Rousserieren bi **eskultura** ohargarri. Herria

Ikusmin handia piztu zuten kalean erakutsitako **eskultura** galkorrek, eta ikusle asko bildu zuten. Berria - Kultura

Burdinazko **eskultura** trinkoak. Berria - Kultura

Zurezko **eskulturak** egiten zituela. Matías Múgica

Beharrezkoa da **eskulturak** kalean jartzea, artea jendeari gerturatzea. Berria - Kultura

Sinetsita nago **eskultura** abstraktua bakar-bakarrik natura erdian egon daitekeela. Berria - Kultura

Afganistango talibanak, Budaren **eskultura** erraldoiak apurtzen hasiak ziren. Hasier Etxeberria

Telefono ondoan zutik geratu zen tarte batean, espazio eta denboratik landa, **eskultura** greziar anorexiko bat iduri. Unai Iturriaga

Ez dut inon ikusten edertasun zintzo eta noble horri gain hartzen dion **eskultura** modernorik. Patziku Perurena

Egongelan egokitu genuen **eskultura** zulodun hura. Patxi Zubizarreta

Forma zehatzik gabeko ia metro-erdiko **eskultura**-antzekoa, metal ilunekoa. Iban Zaldua

Eskultura multzo berean Martxaren letra dago irarria. Askoren artean

Artista nafarrak 30 urtean egin dituen **eskultura** sailik aipagarrienak bildu ditu BBK fundazioak Bilbon. Berria - Kultura

Masa **eskulturetatik** energia **eskulturetara** eginiko jauzia. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

altzairuzko eskultura (4); **arkitektura eta eskultura** (3); **bat eskultura** (3); **bere eskultura** (4); **bere eskulturak** (5); **bi eskultura** (5); **brontzezko eskultura** (11); **brontzezko eskultura bat** (3); **da eskultura** (6); **david eskultura** (4); **den eskultura** (3); **dituen eskultura** (3); **du eskultura** (4); **duen eskultura** (9); **egindako eskultura** (6); **eginiko eskultura** (6); **enbor eskulturak** (3); **eskultura asko** (4); **eskultura bat** (42); **eskultura bat jarri** (3); **eskultura baten** (8); **eskultura daude** (4); **eskultura eder** (4); **eskultura egin** (5); **eskultura egiteko** (6); **eskultura ere** (3); **eskultura erosi** (3); **eskultura eta** (27); **eskultura eta pintura** (4); **eskultura galkorren** (3); **eskultura handi** (5); **eskultura inauguratu** (4); **eskultura inauguratuko** (5); **eskultura inauguratuko dute** (3); **eskultura jarriko** (5); **eskultura lan** (3); **eskultura lanak** (4); **eskultura multzoa** (3); **eskultura publikoak** (4); **eskultura txiki** (3); **eskulturak daude** (3); **eskulturak egin** (3); **eskulturak egitea** (3); **eskulturak egiteko** (8); **eskulturak egiten** (6); **eskulturak ere** (8); **eskulturak eta** (13); **eskulturaren arteko** (6); **eskulturaren gainean** (3); **eta eskultura** (38); **eta eskulturak** (16); **eta eskulturaren** (15); **eta eskulturaren arteko** (6); **eta eskulturen** (5); **ez da eskultura** (3); **hiru eskultura** (5); **izeneko eskultura** (4); **lau eskultura** (5); **lau eskultura erosi** (3); **nire eskultura** (3); **omenezko eskultura** (6); **oteizaren eskultura** (8); **oteizaren eskultura bat** (3); **pintura eta eskultura** (15); **pintura eta eskulturaren** (3); **pinturaren eta eskulturaren** (3); **zen eskultura** (3); **zuen eskultura** (4)

---

eskulturagile *(ETCn **95** agerraldi, orobat **eskulturgile** ETCn **138** agerraldi) iz* eskultorea.

Estatuaren ideia izan zuen Fréderic Auguste Bartholdi **eskulturagileak** bere bizitzako hogeita bat urte eman zituen egitasmoa aurrera atera nahian. Harkaitz Cano

Ricardo Ugarte **eskulturagile** pasaitarra Julia Otxoa idazlearekin gerturatu zen Guggenheimera, «lagun handia izan zenaren» lana ikustera. Berria - Kultura

Margolari eta **eskulturagile** izan zen garai batean, bere espirituaren onerako eta poltsikoaren kalterako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Marco Augusto Qiroa margolari, **eskulturgile**, idazle eta kazetari guatemalarra igandean hil zen, 67 urte zituela. Berria - Kultura

Eskulturgilearen esanetan, ahalik eta ondoen isladatu nahi du Atano III.a zena, eta ezagutu zutenei gustatuko zaiela pentsatzen du. Berria - Kirola

Sarituak, hain zuzen ere, Nafarroako presidentearen eskutik hartu zuen Remigio Mendiburu **eskulturgileak** egindako ikurra. Berria - Euskal Herria

Inoiz ez baitu ulertu zergatik **eskulturgileak** ezer gabe utzi zuen zuloa eskuartean. Pako Aristi

Eskulturgileak berak idatzitako testuak jasotzen ditu liburuak, El Bidasoa astekarian argitaratu zituenak. Berria - Kultura

2 (izenondo gisa)

Lanean bazuen lagun **eskulturgile** bat, etxean non ipini geratzen ez zitzaionean, noizean behin bere obrak oparitzen zizkiona. Patxi Zubizarreta

---

eskulturagintza *(orobat **eskulturgintza**) iz* eskultura.

Urte haietako **eskulturagintza** aurrerakoiena imitatzen saiatzen zen tramankulu hori ez da objektiboki atsegina, baina, ez dakit zergatik, halako maitasuna genion biok, eta, haren hutsune eta tarte oteizar-metafisikoak hautsez libre gordetzea batere lan erraza ez bazen ere, saiatu, saiatzen nintzen inguratzen zuen entropia geroz eta handiagoaz [...]. Iban Zaldua

Eskulturgintza garaikidearen lau ikur handik. Berria - Kultura

Aurten, honako ikastaro hauek eskaini dira: zeramikaren hastapenak, serigrafia zeramikoaren hastapenak, grabatu kalkografikoaren hastapenak, marmolezko **eskulturagintza**, zurezko **eskulturagintza**, brontzearen galdaketa artistikoa, eta zur gaineko dekorazioa eta polikromazioa. Berria - Kultura

---

eskultural *izond* eskultura klasikoen forma edo edertasuna duena; edertasun eskulturala duena.

Lehenengoan, gorputz **eskulturala** zuten tanga hutsean jantzitako kamareroek. Harkaitz Cano

Beste toki apropos bat inguruko arropa-denda dotoreen erakusleihoen aurrealdea izaten zen, handik dendari **eskulturalak** miretsi ahal baitziren, batek-daki-nondik ateratakoak. Jon Arretxe

---

eskulturatu, eskultur(tu), eskulturatzen du *ad* eskultura itxura eman.

Hemen, Pasaian, euriek, itsasoak eta haizeak landu eta **eskulturatuta**, ezin konta ahala harrizko biztanle mutu, geldi, eternal, ia izugarriz dago populatua mendia,

hareharrizkoak denak. Koldo Izagirre

---

eskulturatxo *iz* tamaina txikiko eskultura lana.

Eskuetan jartzen dizkiot haren liburuak, haren *Propósito experimental* itzela eta hark oparitutako bi **eskulturatxoak** ere bai, jostailu gisa erabil ditzan. Hasier Etxeberria

---

eskulturgile ik **eskulturagile**.

---

eskulturgintza ik **eskulturagintza**.

---

eskuluze **1** *izond* eskua luzea duena.

Ez nezakeen konpreni zeren kariaz hobetsi ninduen Robertek, afarietara agertzen ziren emakume begiargi, **eskuluze**, dotore haietarik bat hautatu ordez. Xabier Montoia

• **2** *iz adkor* lapurra.

Haurrei esatea gomendatu du batek: **eskuluze** bat dabilela eta baliozko gauza guztiak ondo gordetzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Haur txikienei baliozkoa zer den azaltzeko zailtasunak; **eskuluzeak** balio gutxiagoko gauzak osten segitzeko arriskua. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (izenondo gisa)

Tirania **eskuluzeari** ate guztiak itxi nahi dizkion legegile batek ezin du injustizia emankor hau onartu. Juan Martin Elexpuru

---

eskuma *iz* eskuina.

Hortxe, **eskuman**, Meata tabernaren parean. Txillardegi

Cienfuegosek tu egiten duen moduan keinatu dit ostera ere **eskumako** begia. Koldo Izagirre

Zeharka zihoan Matias treneko korridoretik, **eskumako** maleta aurrean eta ezkerrekoa atzean, korridorea estua baitzen. Unai Elorriaga

Begiak ikusi zituen ispiluan, eta ezkerreko begia **eskumakoa** baino nekatuago zegoela zirudien. Unai Elorriaga

Dutxak **eskumako** aldean daude. Urtzi Urrutikoetxea

Aurpegia bero-bero sentitzen du eta **eskumako** matraila eskuan sostengatzen du, ukondoa barra gainean. Sonia Gonzalez

Begiak ikusi zituen ispiluan, eta ezkerreko begia **eskumakoa** baino nekatuago zegoela zirudien. Unai Elorriaga

Ezkerreko bernan aurrena eta **eskumakoan** segidan. Jasone Osoro

Ezkerreko eskuaz koadroari eusten zion; **eskumakoaz** esanahi zehatzik ez zuten keinuak egiten ari zen. Unai Elorriaga

Berak, **eskumarantz** begiratu zuen, ordea, trena atzean sumatzean. Harkaitz Cano

Handik denbora gutxira lorategi bat sortu zen galeriaren **eskumatan**, eta ortu bat ezkerretan. Julen Gabiria

-Kale honetan behera, **eskumara**. Joxerra Garzia

Gizonak azalpen zehatzak eman zizkion, eta ezkerretara hiru aldiz egin behar zuela, eta **eskumatara** bi aldiz. Unai Elorriaga

Begira gelditu nintzen tarte batien, zaldia eta andrea zelan joiazen, zaldia **eskumatara**, andrea ezkerretara. Bernardo Atxaga

Yemendik bideak zelai zabaletan jarraitzen du, ezkerretara hangar itxurako etxola txikia dago eta **eskumatara** negutegiak han-hemenka. Urtzi Urrutikoetxea

Semaforo gorrian stop eginda, ibilgailua ralentian, udaltzain-autoa ikusi dute **eskumatik** abian. Urtzi Urrutikoeetxea

Zakurrek buztana ezker-**eskuma** mugituz hartu zuten. Joxemari Urteaga

Bere gorpua zabortegian hilda agertu zenean, zartada handi bat jaso zuen gizarte germaniarrak eta **eskumatik** eta ezkerretik, alde guztietatik, salatu eta gaitzetsi zuten hilketa. Hasier Etxeberria

Egia da garai batean ezkerreko eta **eskumako** intelektualak bereiztu zirela (Mussolinik egin Etiopiaren inbasioa justifikatzeko Inteligentziaren Alderdia sortu eta *Pour la défense de l'Occident et la Paix en Europe* manifestua idatzi zuten) eta polarizazio hori gerra hotzaren garaietan luzatu zen. Berria - Kultura

Seguruenik, urtea hasi denetik, Zapaterok jasan dituen presioek eragin handia izan dute bere portaeran, **eskuma** espainiarrak eskura dituen arma guztiak, militarrenak barne, jokoan jarri ditu eta. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskuma aldean (5); **eskuma aldeko** (3); **eskumako aldean** (3); **eskumako erpurua** (3); **eskumako erpurua soinu** (3); **eskumako ertzean** (3); **eskumako eskua** (5); **eskumako eskuan** (6); **eskumara jiratu** (3); **eta eskumako** (7); **eta eskuman** (3); **eta eskumatik** (3); **eta eskumatik** (3); **ezker eskuma** (11); **ezker eskumara** (3); **zuen eskumako** (3)

---

eskumakila *(orobat **eskumakil**)* **1** *iz* ibiltzean euskarri edo lagungarri gisa erabiltzen den makila, eskuarki landua eta eskutoki duena.

Ohartu nintzen neke zuela **eskumakilaren** laguntzarik gabe ibiltzea. Juan Garzia

-Beraz, deabrukume horrek ez dizu ezer kontatu -zioen oihuka orain Koronelak, **eskumakilaz** Charlieri keinu eginez. Mirentxu Larrañaga

Batek bekaina irekia du ostiko batez, niri bost eguneko lan gelditzea eman didate sendagileek, bertze batek **eskumakilez** ibili behar du, bertze bati lepokoa ezarri diote Bere kapa beltzean bildua zihoan, **eskumakila** begitsuan bermatua, urrats astun eta motelean. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskaldunok, bestalde, sarri erabili izan dugu gorostia makiletarako, eta baita egin ere makulu eta **eskumakila** dotore askoak gorosti lerden xuxenarekin. Pello Zabala

Urrezko kirtendun **eskumakila** bikain bat zuen beti aldean, beretzat inondik ere oroitzapen zoragarriren bat zekarkiona. Josu Zabaleta

3 morroi gisa erabiltzen den pertsona.

Botereak gehiegikeriaren atea zabaldu, eta saldoan etorri ziren haren **eskumakila** izan nahi luketenak, arotz txarraren moduan mailua altxa eta, iltzea ez ezik, ohol osoa jotzen zutenak. Berria - Harian

Nora Erfjord-ek bere idazkari-kargua utzia zuen; haren lekuan zegoen bazkide berria, Karlisnki, Twirl-en **eskumakila** hutsa zen. Juan Garzia

Ez nintzen, hala behar baita erran, goresten dudan Jainkoaren **eskumakil** ahula baizik. Jon Muñoz

Ibarretxe bera ETA-ren **eskumakil** bilakatua dela. Herria

Alkateak herriko buru inozentea izan behar du, ez honen edo haren **eskumakil** politikoa. Patziku Perurena

Hori egia izatera, ahalbait lasterren identifikatu beharra zegoen banda hartako Zilon: bere **eskumakilei** Grosrouvre hiltzeko agindua eman ziena, alegia. Jon Muñoz

Gonaives hiriaren kontrola hartu duen mugimendu armatua, aurretik Aristideren **eskumakila** izan zela esan da. Berria - Mundua

-Higanot zerria! Deabru heretikoa! Satanen **eskumakila**! -oihukatzen zidaten. Aingeru Epaltza

Ez izan balio batzuen absolutismoan interesatua den Estatuaren **eskumakila** hutsa. Joxe Azurmendi

Irakeko gaur egungo agintariak okupazio indarren **eskumakila** eta laguntzailetzat jotzen dituzten erresistentzia indarren iritzian, berriz, Kontseilu nazionalaren eraketak ez du

inolako zilegitasunik izango. Berria - Mundua

Frantses estadoak hemengo **eskumakilen** laguntzarekin boaren jokabidea edo estrategia du hautatu. Herria

---

eskumalde *iz* eskuinaldea.

ELAko **Eskumaldeko** Zerbitzuetako idazkari Olatz Urrutxurturen esanetan, ez da aurrerapausorik eman: «Udalak udan langile laguntzaileen lan baldintzak sektore publikoan dihardutenekin parekatu zituen, baina garbitzaileak alde batera utzi zituen». Berria - Ekonomia

---

eskumaleta *iz* eskuko maleta.

Bi gosaltiarren aulkien artean, agiriz betetako **eskumaleta** marroi bat zegoen ongi zaindurik. Aitor Arana

---

eskumaratze *iz* eskuineratzea.

Besteak **eskumaratzearen** salaketan oinarrituta kritika edo oposiziora doaz. Berria - Euskal Herria

---

eskumen 1 *iz* norbaiten esku dagoen aginpidea edo erabakimena.

A priori formal batzuen aurrean, hauen **eskumena** kontingentziarik gabe hedatzen delarik, bera irudi enpiriko hutsa da. Xabier Arregi

Polizia eta Justizia: Bi arloetako **eskumenak** bi urteko epean ematea edo ez onartu beharko dute unionistek eta nazionalistek Stormonten. Berria - Mundua

Unibertsitaterako aurrekontuen tamaina urtez urte igotzen den arren, inoiz ez zaigu nahikoa iruditzen, eta gainera, herri erakundeek beti eskatzen dute zerbait horren truke, gehienetan unibertsitatea kontrolatzeko **eskumen** gehiago. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Norberak nahi duena izateko **eskumena** behar luke, adinera iritsi orduko. Joxerra Garzia

Zerbitzu publiko horren ezaugarri eta helburu nagusiak ezartzeko **eskumena** dutenak herri erakundeak izan behar direla da txanponaren beste alde hori. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eta azkenik, aberastasunak, honela deitzen baitiegu legez gureak diren eta inori saldu edo emateko **eskumena** dugun ondasunei. Imanol Unzurrunzaga

Maitasunaren legea eta giza izaera subkontzientearen legea, biek argi eta garbi **eskumena** dutelarik giza arazoetan, desberdinak ez ezik, kontraesankorrak eta bateraezinak ere badirela; *Diozesi* hitza Elizak hartu zuen, baina apezpiku bakar baten **eskumenari** aplikatu zion. Iñaki Mendiguren

PPk **eskumena** eman nahi die mutualitateei lanetik at gertatutako istripuengatik edota gaixotasun arruntengatik gaixo-agiria duten beharginek senda-agiria noiz hartu erabakitzeko. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuak «berriz ere erkidegoaren **eskumenak** lapurtu» dituela uste du ELAk. Berria - Ekonomia

Teologo entzutetsuenak ere filosofiari arlo propioaren **eskumena** segurtatzen saiatu ziren, Alberto Handia eta Tomas Akinokoa teologoak, sasoiko pentsabidearen ordezkari ausartak zirela erakutsiz. Askoren artean

EILASeko Belen Arrondok ohartarazi zuen PPk prest daukala mutualitateen **eskumenak** handitzeko dekretua. Berria - Ekonomia

Hartuko diren erabakiei buruz datu gehienak eta onenak dituen erkidegoa gara, arrantza ikerketako **eskumenak** tranferituta dauzkan bakarra. Berria - Ekonomia

Txosten horrek dio 37 **eskumen** ez direla eskuz aldatu, horien artean, enplegua, lan ikuskaritza, espetxeak, eta berrikuntza eta garapena. Berria - Euskal Herria

Herriek **eskumen** batzuk galtzeak desabantailak baditu? Berria - Harian

Urte horretan Insaludeko aurrekontuak gehitu egin ziren, osasun arloko **eskumenak** ez zituzten erkidegoei transferentzia egiteko. Berria - Ekonomia

Kartzela berriari buruzko **eskumena** Madrilek duela erran du Nafarroako Gobernuak. Berria - Euskal Herria

Eurohiriak **eskumenen** arazo bera dauka osasungintzarekin. Berria - Euskal Herria

Erakunde autonomikoek ez dute gai horretan ez politikarik ez **eskumenik**. Berria - Ekonomia

Aralar, EA, EAJ eta Batzarrek osatzen duten zerrenda bateratuak dio aipatutako arauak Foru Erkidegoak alargun pentsiodunen egoera ekonomikoa hobetzeko dituen «**eskumenak** urratzen» dituela. Berria - Ekonomia

Aurreproiektuak ez ditu erkidegoen **eskumenak** aintzat hartzen. Berria - Euskal Herria

Izan ere, (munduaren) esperientzia ahalgarriaren alorretik at pentsa daitekeen hutsuneari dagokionez, hau ez dagokio adimen soilaren **eskumenari**, honek agerpen jakinek ezagutza enpirikorako duen erabileraz baino ez baitu erabakitzen. Ibon Uribarri

Ahaltsuenak, gu salba gintzakeen bakarrak, **eskumenik** ez duela erabaki zuen atzo, eta **eskumenik** ez duela dio gaur ere berriro. Josu Zabaleta

Eskumenen deszentralizazioa bultzatzeko. Berria - Ekonomia

2 (toki deklinabide atzizkiekin)

Eskumenean zuen irrikatzen zuen guztia. Gotzon Garate

Likoreak **eskumenean** zituen, kristal landuzko flaskoetan. Karlos Zabala

Lo zegoen, ez nuen iratzartu: bi zigarreta paketa utzi nizkion, mantaren pean, **eskumenean**, eta joan nintzen. Marzel Etxehandi

Denek zoriondu zuten Mouton; behin ere ez zuela deus ebasten adierazi zuten, haragia haren **eskumenean** laga zitekeela. Karlos Zabala

Asis ez zen hiri handia tamainaz, baina bai garrantzitsua bere kokapen estrategikoagatik, Enperadorearen mende zegoen Spoletoko konderriaren ertzean baitzegoen, Perugia, alboko hiria, Aita Santuaren **eskumenean** zegoen bitartean. Askoren artean

Hormak behetik goraino estaltzen zituzten liburuen azken ilaretara iristeko, errail hartatik zintzilikatzen zen eskailera, eta handik erabiltzen batera eta bestera, libururik goikoena ere **eskumenean** izateko moduan. Iñaki Iñurrieta

Hemen, zeure **eskumenean** duzu dena. Jose Morales

Aseguru etxeekin banan-banan egin behar dituzte hitzarmenak, guk **eskumenik** ez baitaukagu itun zabalagorik egiteko. Berria - Ekonomia

Italia izan zitekeela komunismoaren **eskumenean** eroriko zen Europa mendebaleko lehen herria. Koldo Biguri

Guri, ordea, tentatzera etortzen zaigu egunero deabrua, guk ez ditugu onartu nahi haren opariak, baina berak **eskumenean** jartzen dizkigu. Jose Morales

Beste anaien ministro eta morroi jarriak dauden anaiek, beren **eskumeneko** probintzia eta bizilekuetan koka bitzate anaiak, eta sarri bisita eta espiritualki aholka eta adore bitzate. Askoren artean

Gaztea **eskumenera** eduki izan balu, zartako edo ostikoren bat emango zion. Patxi Zubizarreta

Hamaka banatan etzanda egoten ginen, beti garagardoren bat **eskumenera**, izerditan, izerditzea bailitzan gure bizitzaren helburu, inolako erabakirik hartzeko ez-gauza, baina aski pozik, halere, zerbeza hura benetan bikaina zelako. Joxe Austin Arrieta

Bere **eskumenera** zurezko bi mahai zeuzkan, bietan harparen sokak eta baten ertzean biolinarenak ageri zirela. Patxi Zubizarreta

Tontsura edo hile-mozte honek kleriko bihurtzen zituen, hau da, agintari zibilen **eskumenetik** ateratzen zituen eta Elizaren babespean jartzen. Askoren artean

-Horrela bada, nire **eskumenetik** kanpo dago erabat -esan zuen Pippinek-. Agustin Otsoa

Mikel Strogoff zaldizko uzbeken **eskumenetik** at zegoen. Karlos Zabala

Ura besterik ez inguru osoan, eta ni hantxe zutik, denen **eskumenetik** at izatearen poza dastatuz. Joxe Austin Arrieta

Eskolastikoen asmaketei zor dizkiegu merkataritzaren suntsipenak ekarritako zoritxar guztiak, eta printzeen askonahiari berorien boterearen **eskumenetik** at jartzen duen gauza bat ezartzea. Iñaki Iñurrieta

Definizio honen frogatzeko aski argudio aurkituko da, urrunago aipatzen ditugun Pariseko Joanesek, Durandek, Joanes Gersonek, [...] Caietanok eta Jakobe Almaynusek, Aita Sainduaren eta Elizaren botereaz, aginteaz eta **eskumenez** idatzi liburuetan. Piarres Xarriton

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Errekurtsoa arkeztu zion Espainiako Gobernuak «akordioak nazioarteko harremanetarako Estatuaren **eskumen** esklusiboa urratzen» zuelako. Berria - Ekonomia

Zerga sistema arautzeko **eskumen** osoa dugu. Berria - Euskal Herria

Nafarroak **eskumen** osoak ditu Nafarroako Administrazio Publikoetako langileei egoki irizten dion soldata igoera aplikatzeko. Berria - Ekonomia

Immigrazioaren alorrean ere **eskumen** propioak izango ditu. Berria - Euskal Herria

Finantzazioa oinarrizko elementua izango da, baliabiderik gabe **eskumen** politikoak ez baitira aski. Berria - Mundua

«Merkatu bakarra edo merkatu nazionala» **eskumen** autonomikoen gainetik dagoela argudiatu zuen. Berria - Euskal Herria

Agiri bateratuan etxekolan zehatza agintzen zaio Jacques Chirac Errepublikako presidenteari: «CPE erretiratzeko bere **eskumen** konstituzionalak erabiltzeko». Berria - Ekonomia

Komisarioek uste dute Ekofin Ekonomia eta Finantza Ministroen Kontseiluak ez zuela inolako **eskumenik** hamabost herrialdeek onartutako itun bat hausteko. Berria - Ekonomia

Eskumen estrategikoak herri elkargoen esku uztea da helburua, Bolokiren arabera. Berria - Harian

Udalek pixkanaka-pixkanaka beren **eskumen** garrantzitsuenak galduko dituzte, herri elkargoen esku uzteko. Berria - Harian

Arazoari aurre egiteko EAEk beharrezko **eskumenak** ez dituenean. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gobernuak argudiatzen du ez dela **eskumen** aldaketarik gertatu, eta, ondorioz, ez dela baliabideen banaketa aldatu behar. Berria - Ekonomia

Presidentearen eta gobernuaren arteko **eskumen** banaketa berri hau, 2005ko irailean edo 2006ko urtarrilean jarriko da abian. Berria - Mundua

Espainiako Administrazioak **eskumen** lehia argudiatu zuen bere garaian. Berria - Ekonomia

Konstituzionala soilik **eskumen** arazoak bideratzeko beharko luke, eztabaida politikoko aferak baztertuz. Berria - Ekonomia

Iazko irailaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Arrantza sailak Mauritaniarekin lortutako akordioari iragan azaroan **eskumen** errekurtsoa arkeztu zion Espainiako Gobernuak. Berria - Ekonomia

Behin-behinekotasuna ez da apaldu, lanpostu ugari galdu dira industrian eta «galga» da **eskumen** falta. Berria - Ekonomia

Erabaki horri helegitea aurkeztu zion Jose Maria Aznarren gobernuak Auzitegi Konstituzionalean, **«eskumen** inbasioa» argudiatuta. Berria - Ekonomia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hezkuntza **eskumenen** inguruko ezadostasunak direla eta, bertan behera geratu dira instituzioen arteko harremanak finkatzeko negoziazioak. Berria - Mundua

Bien artean akordioa lortuz gero, Stormontek Justizia eta Polizia **eskumenak** bere gain hartzearen alde ere egin du Robinsonek. Berria - Mundua

Halaber, espetxe **eskumena** Eusko Jaurlaritzaren esku uzteko ere galdegin zion. Berria - Harian

Aljerren ez baina Madrilen lortu zuen EAJk Euzkadiren burujabetza eta askatasunerako giltza, Ertzaintzaren kudeaketa **eskumena** alegia. Jokin Urain

Lan, gizarte segurantza eta immigrazio **eskumenak** eskatu dizkio Espainiako Gobernuari. Berria - Ekonomia

5 ***eskumeneko*** *izlag* agindupekoa. ik **eskumende 3**.

Ez zuen sekulan jo, mozkorra arraila etxeratu ondoan, asaldaturik, bururik ez buztanik gabeko hitzak oihukatuz, **eskumeneko** gauza guziak hausten zituelarik ere. Elena Touyarou

Beste anaien ministro eta morroi jarriak dauden anaiek, beren **eskumeneko** probintzia eta bizilekuetan koka bitzate anaiak, eta sarri bisita eta espiritualki aholka eta adore bitzate. horren barnean halakoarekin zerikusia dagoen guztia Aldundiaren **eskumenekoa** da baina, hori bai, makila handia Estatuko Gobernuak dauka, etc. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaketak egiteko eskumena (3); **aldundien eskumen** (3); **antolatzeko eskumena** (7); **arautzeko eskumena** (3); **auzia epaitzeko eskumena** (3); **baino eskumen** (4); **baino eskumen gehiago** (3); **bat eskumen** (3); **bere eskumen** (3); **bere eskumena** (5); **beren eskumen** (3); **biltzeko eskumena** (4); **buruz erabakitzeko eskumena** (3); **buruzko eskumena** (3); **da eskumen** (4); **dagokion eskumena** (3); **deitzeko eskumena** (8); **dela bere eskumena** (3); **dela departamenduaren eskumena** (3); **departamenduaren eskumena** (4); **dituen eskumen** (3); **du eskumen** (3); **du eskumena** (4); **egiteko eskumena** (8); **egiteko eskumena eman** (3); **emateko eskumena** (6); **epaitzeko eskumena** (9); **erabakitzeko eskumena** (9); **ere eskumen** (3); **eskumen bat** (3); **eskumen batzuk** (6); **eskumen diren** (3); **eskumen esklusiboa** (6); **eskumen esklusiboak** (16); **eskumen esklusiboak eta** (3); **eskumen esklusiboak izatea** (3); **eskumen eta** (7); **eskumen falta** (3); **eskumen fiskalak** (3); **eskumen gatazka** (5); **eskumen gatazka positiboa** (4); **eskumen gehiago** (43); **eskumen gehiago eskatu** (3); **eskumen gehiago eta** (5); **eskumen gehiago izan** (3); **eskumen guztiak** (4); **eskumen hori** (17); **eskumen horiek** (11); **eskumen horien** (4); **eskumen osoa** (7); **eskumen propioak** (3); **eskumena baduela** (3); **eskumena behar** (3); **eskumena da** (9); **eskumena dela** (5); **eskumena dira** (3); **eskumena du** (6); **eskumena duela** (3); **eskumena duen** (8); **eskumena dute** (3); **eskumena duten** (9); **eskumena duten erakundeei** (3); **eskumena edukiko** (4); **eskumena edukiko du** (4); **eskumena eman** (8); **eskumena ematea** (3); **eskumena ematen** (3); **eskumena ere** (3); **eskumena eskatu** (3); **eskumena eta** (4); **eskumena eusko** (11); **eskumena eusko jaurlaritzaren** (5); **eskumena eusko jaurlaritzari** (5); **eskumena ez** (6); **eskumena izan** (3); **eskumena izango** (9); **eskumena jaurlaritzaren** (4); **eskumena jaurlaritzaren esku** (4); **eskumena ukanen** (3); **espetxe eskumena** (4); **espetxeen eskumena** (4); **espetxeetako eskumena** (8); **estatuaren eskumen** (4); **estatuaren eskumena** (3); **eta eskumen** (20); **eta eskumen gehiago** (9); **ezartzeko eskumena** (4); **gaineko eskumena** (4); **gero eta eskumen** (3); **gizarte segurantzaren eskumena** (3); **gobernuak eskumen** (3); **hainbat eskumen** (12); **hartzeko eskumena** (7); **horretarako eskumena** (7); **jaurlaritzak eskumen** (3); **jaurlaritzaren eskumena** (3); **kontsultak deitzeko eskumena** (3); **kudeatzeko eskumena** (4); **madrilek eskumen** (3); **nagusiaren eskumena** (3); **politikaren eskumena** (3); **segurantzaren eskumena** (3); **zenbait eskumen** (3); **zenbat eta eskumen** (3)

arloko eskumenak (15); **arloko eskumenak stormonten** (3); **baten eskumenak** (3); **bere eskumenak** (4); **da eskumenak** (4); **dagozkion eskumenak** (5); **dauden eskumenak** (4); **diren eskumenak** (5); **dituen eskumenak** (16); **dituen eskumenak urratzen** (3); **dituzten eskumenak** (8); **egiteko eskumenak** (3); **erkidegoen eskumenak** (3); **eskumenak bere** (6); **eskumenak bere gain** (4); **eskumenak bereganatu** (3); **eskumenak bereganatu nahi** (3); **eskumenak dira** (3); **eskumenak direla** (3); **eskumenak dituzten** (10); **eskumenak ere** (6); **eskumenak eskatu** (5); **eskumenak espainiako** (5); **eskumenak eta** (17); **eskumenak eta espainiako** (3); **eskumenak euskal** (3); **eskumenak ez** (7); **eskumenak handitzeko** (4); **eskumenak lortzeko** (3); **eskumenak stormonten** (5); **eskumenak stormonten esku** (5); **eskumenak urratu** (4); **eskumenak urratzen** (7); **eskumenak urratzen dituela** (3); **espetxe eskumenak** (5); **estatuaren eskumenak** (5); **eta eskumenak** (7); **eta polizia eskumenak** (4); **foru eskumenak** (3); **gabeko eskumenak** (3); **gaineko eskumenak** (5); **gelditzen zaizkion eskumenak** (3); **horretan eskumenak** (4); **inguruko eskumenak** (3); **jaurlaritzaren eskumenak** (3); **justizia arloko eskumenak** (3); **justizia eskumenak** (3); **mutualitateen eskumenak** (4); **nafarroaren eskumenak** (4); **nafarroaren eskumenak eta** (4); **polizia arloko eskumenak** (4); **polizia eskumenak** (4); **udalen eskumenak** (3); **zaizkion eskumenak** (3)

arloko eskumenen (3); **auzia epaitzeko eskumenik** (5); **bere eskumenean** (4); **bere eskumenen** (3); **dauden eskumenen** (3); **dituen eskumenen** (6); **du eskumenik** (13); **duela eskumenik** (3); **egiteko eskumenik** (9); **epaitzeko eskumenik** (9); **epaitzeko eskumenik ez** (6); **erabakiak hartzeko eskumenik** (3); **eskumenean eduki** (3); **eskumenei buruz** (5); **eskumenen araberako** (3); **eskumenen arazoak** (3); **eskumenen banaketa** (4); **eskumenen gainean** (5); **eskumenen inguruan** (9); **eskumenen inguruko** (5); **eskumenen mugak** (3); **eskumenen transferentzia** (5); **eskumenen transferentziari** (3); **eskumenen truke** (4); **eskumenetik at** (6); **eskumenetik kanpo** (7); **eskumenetik kanpo dago** (3); **eskumenez eta** (4); **eskumenik eta** (3); **eskumenik ez** (27); **eskumenik ez duela** (15); **eskumenik ez zuela** (4); **eskumenik gabe** (4); **eskumenik izan** (3); **eskumenik izango** (5); **eta eskumenen** (7); **eta eskumenez** (4); **eta eskumenik** (3); **ez du eskumenik** (12); **hartzeko eskumenik** (4); **horretarako eskumenik** (4); **inolako eskumenik** (4); **lan arloko eskumenen** (3)

---

eskumende **1** *adlag* eskupean, agindupean.

Lurralde hartako biztanleak **eskumende** jarriko dizkizuet, eta zuek bota egingo dituzue. Elizen arteko biblia

Bere **eskumende** gauzka gu geu eta gure hitzak, bai eta zuhurtzia eta lanerako trebetasuna ere. Elizen arteko biblia

Ostutako aberea -idi, asto nahiz ardi- bere **eskumende** eta bizirik aurkitzen badiote, bi halako ordainduko du. Elizen arteko biblia

2 ***eskumendean*** eskupean, agindupean.

Orain, mujikak dituk **eskumendean** : ondo konpontzen haiz haiekin eta, jakina, ez diek gaitzik egiten, zeren, heureak dituanez, hiretzat kaltea txarto tratatuko bahitu. Jose Morales

Nire **eskumendean** dagoen baliabide bakarra darabilt nire esker onak bihurtzeko. Ibon Uribarri

Nork eman zion eraikuntza-batzordeari haren **eskumendean** ez zeuden funtzionarioez nahierara baliatzeko eskubiderik? Jose Morales

Zeure hiltzaileen **eskumendean** , jarraituko ote duzu jainko zarela esaten, zuk, gizaki huts zaren horrek? zorionekoa bere **eskumendean** daukan etsai horri beti loturik eusten dion zerbitzaria eta horrengandik zuhurki zaintzen dena Elizen arteko biblia

3 ***eskumendeko*** *iz* agindupeko pertsona edo gauza. ik **eskumen 5**.

Gure eraikinaren eskuinean Zaandam-eko Keg enpresaren **eskumendeko** bat dago, eta ezkerrean zurgindegi bat. Josu Zabaleta

eskumeneko ik **eskumen 5**.

eskumenka *adlag* eskukadaka, esku beteka, ugari.

Eta Mattinendako zituen hitzak eta Mattinendako begiak; eta Mattinendako zituen irriak **eskumenka**, enetzat bihika, eta ni jelosiak joa egoiten nintzen. Joan Mari Irigoien

eskumiazka *adlag* esku beteka.

-Behin txastatzen baduzu, Santxo -dukeak esan- **eskumiazka** jan nahiko duzu, hain baita gozo-gozoa norberak agindu eta bestek obeditu. Patxi Ezkiaga

eskumikatu, eskumika(tu), eskumikatzen *(orobat **eskominatu**)* du *ad* Elizak fededunen elkartasunetik bereizi.

Ordura arte, **eskumikatu** edo elizatik kanporatu egiten zituzten heretikoak. Berria - Gaiak

Denek ahantzia Robert II-garrena, Robert elizatiar handia, frantsesez Robert le Pieux deitua, aita sainduak **eskumikatu** zuena haatik bere lehen emaztea utzi baitzuen gazteago baten hartzeko. Herria

Frederiko, Siziliako erregea, Elizaren kontra matxinatu zenean, Aita santuak **eskumikatu** egin zituen bera eta beraren laguntzaile eta kontseilari guztiak. Askoren artean

Iruñeko apezpikua ez baitzegoen lo eta beretzat baitzeukan Ondarrola gozamenez, paperez ez balin bazen ere, ezkontza horiek ez zirela bali jakinarazi zuen, lau espos-berriak **eskumikatzen** zituela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lege hau, beste asko bezala, ez zen gauzatu, Celestino III.a aitasantuak **eskumikatu** egin baitzuen erregea, eta bere erregetza zalantzan jarri. Juan Martin Elexpuru

-Ene anaia maite-maitea, nahigabe handia ematen dit zu **eskumikaturik** eta Ordenatik kanpora egoteak, eta horrela hil behar izateak. Askoren artean

Elias **eskumikatua** izan zen 1239an, eta 1246an, Zelanok idazten duenean, oraindik zigorpean zegoen. Askoren artean

Eskumikatua hago. Koro Navarro

2 (era burutua izenondo gisa)

Eta astalapiko **eskumikatu** bat hara non etorri eta hamar milioi erortzen zaizkion patrikara zerutik! Koldo Biguri

3 irud/hed

Iduriz, aski zen zerrenda horietarik edozointan, hautagai bat, bat bakarrik, izaitea Herri-Batasuna edo Batasuna alderdietan izana, bai hori aski zen zerrenda guzia **"eskumikatua"** izaiteko! Herria

Hego Euskal Herrian orokorkiago, egoera ez da baitezpada hobea, Aznar-en gobernuak bata bertzearen ondotik **eskumikatzen** dituelarik euskal egiturak: legez kanpo alderdi politiko batzu, legez kanpo euskarazko egunkaria, legez kanpo ezkerreko Udalbiltza... Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aita santuak eskumikatu** (3); **eskumikatu egin** (4)

eskumikatze *iz* Elizak fededunen elkartasunetik bereiztea.

Delako Nafar Doktoreari agindu zioten presondegitzat har zitzan bere etxean zeuzkan egoitzak eta ez zedila handik nehora jalgi, **eskumikatze** eta Ofizio Sainduaren gastuentzat mila dukateko isunaren mehatxupean. Piarres Xarriton

eskumiko ik **eskumiku**.

eskumiku *(orobat **eskumiko** g. er.) iz* Elizak norbait fededunen elkartasunetik bereiztea.

Eskumikua merezi zuela erlikia hain gaizki tratatzeagatik. Joan Mari Irigoien

Aita santuak baimena eman zion berehalaxe itzuli eta, anai Elias bizirik aurkitzen bazuen, beraren izenean **eskumikutik** askatzeko eta berriro hari abitua emateko. Askoren artean

"Jendeen erranez" deitu kapituluko **eskumiku** sententzian erraten da alabaina Frantziako erreinuan heretikoak ez direla zigortuko. Piarres Xarriton

Aita Santuaren musikariek debekatua omen zuten haren kopiarik banatzea, **eskumiku** mehatxupean. Imanol Zurutuza

Gisa berean, **eskumiku** zigorraren mehatxupean, debekatzen diegu ere ikusgarri horrien beren ikustera joatea, fraideei eta sekularrei, elizaren kargutan edo ordena sainduetan sartuak direnei. Piarres Xarriton

Debekatzen eta eragozten diegu, erran orduko, **eskumiku** eta anatema zigorrez gaztigatzeko arriskupean ez dezaten eman nehongo beren probintzietan, ez hirietan, ez lurraldetan, ez gazteluetan, ez beste lekuetan zezenen edo basabereen lasterketak bezalako ikusgarririk egiteko baimenik. Piarres Xarriton

eskumin ik **eskumuin**.

eskumotz *izond* esku bat falta zaiona.

Denak finitu-eta leku horretan kontatuko dira 250 "bandil **eskumotz"**. Herria

-Ez da erraza -aitortu zion Amaiak-, baina ez gara **eskumotzak**. Fernando Morillo

Haren gelara onik sartzen ziren bezeroak itsu irteten ziren, edo herren, konkor edo okitu, **eskumotz** edo hankabakar. Patxi Zubizarreta

Ravelek berak, gerratik **eskumotz** itzulitako lagun batentzat, Paul Wittgensteinentzat -filosofoaren anaia bera- idatzi zuen. Harkaitz Cano

Hobe duzu **eskumotz** edo hankamotz betiko bizitzan sartu, bi esku nahiz bi oinekin betiko sutara jaurtikia izan baino. Elizen arteko biblia

eskumuin *(orobat **eskumin**) iz pl* **1** goraintziak.

Eskumuinak etxekoei. Joxemari Urteaga

- **Eskumuinak** oriotar guztiei eta batez ere neska-mutilei. Martin Anso

Joan hadi hara afaltzera eta emaizkiok **eskumuinak** nire partetik. Bernardo Atxaga

-Atzo etorri zen argazki batzuen bila eta, zuen iloba nintzela jakitean, **eskumuinak** eman zizkidan zuentzako. Joxemari Urteaga

2 ezpainak norbaiten eskura hurbilduz egiten den diosala.

Auzoko eta ez horren hurbileko enbaxadoreek ere **eskumuinekin** batera ehun preziatu, kaobazko edergailu eta urrezko idunekoak eskaini zizkioten. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskuminak eman (6); **eskumuinak eman** (5)

---

eskumutur 1 *iz* eskua besoari lotzen zaion zatia.

Ahozpez etzan zen, nik **eskumutur** bat hartu nion, soka baten muturreko korraizea pasatu handik, eta ohearen aurreko hankan lotu nuen. Juan Martin Elexpuru

-**Eskumuturra** hautsita -entzun zion Harryk maistrari marmar esaten-. Iñaki Mendiguren

Hankak eta eskuak lotu zizkioten eta **eskumuturrak** ebaki. Gotzon Garate

Eliz atarian egon nintzen bitartean, **eskumuturrean** neraman zundaren orratza 1960. urte inguruan mugitu zen. Bernardo Atxaga

Behin ikusi zuen urrearen distira, baina Weasley bikietako baten **eskumuturreko** erlojuaren isla zen. Iñaki Mendiguren

Horrez landa, bere ohiko bitxiak -zintzilikario bat lepoan beheiti, **eskumuturreko** pultserak, erietako eraztun ugariak- eta zapata takoidunak zituen janzki bakar. Aingeru Epaltza

Besaburutik hatz-puntaraino neurtu zuen, gero **eskumuturretik** ukondoraino, besaburutik lurreraino, belaunetik galtzarberaino eta buruaren inguruan. Iñaki Mendiguren

Polizia batek **eskumuturretik** heldu zion, pultsua hartzeko asmoz. Harkaitz Cano

Gogoan dut atorraren **eskumuturretarako** ere berariaz eginarazi zituela mahuka-biki beltz batzuk-. Ander Irizar

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bestea mozkotea, baldarra, ile-gorria, **eskumutur** gorriak alkandora mahuka-motz saretu batetik ateratzen zitzaizkiona. Koro Navarro

Gazteak goitik behera begiratu zion Budi, ibilaldi luzeak desitxuratutako zapatetatik **eskumutur** gorrietaraino, jakaren mahuka higatuen azpitik ageri baitziren. Lopez de Arana

-Hobe dugu joatea -esan zuen Harryk erlojuko uhala lasaituz, Goyleren **eskumutur** lodian estutu egiten baitzion. Iñaki Mendiguren

Sentipen biziagorik ez zuen izango emakume baten **eskumutur** malgua estutzean. Karlos Zabala

Iratxoaren **eskumutur** hezurtsuari heldu zion, Dobbyren eskua pixkana ur-pitxerrera zihoala. Iñaki Mendiguren

Bizarra egin gabeko kokotsari eta jakaren mahuka listuetatik irteten ziren **eskumutur** zimelei erreparatu zien emakumeak. Lopez de Arana

Harryren eskuetako batek Blacken **eskumutur** ahulduari heldu zion, haren makilak desbideratuz. Iñaki Mendiguren

Ezkerreko **eskumuturrean** urrezko katetxo mehe bat zuen. Ander Irizar

3 (hitz elkartuetan lehen osagai isa)

Gero zortzi itxurako borobil bikoitz bat marraztu zuen bi puntuen artean, **eskumutur** mugimendu azkar batez. Harkaitz Cano

Arnasa kontrolatzen saiatu, lepoaldean lurrin doi bat eman, **eskumutur** barrenak txorropean ipini... Patxi Zubizarreta

Orduan barkagarria da agian gezurtxoa, nahiz eta liburu horiek irakurtzera sekula ez ailegatu eta gure zerraldo hezeetan martxan dauden metalezko **eskumutur**-erloju hotzekin soilik lurperatuak izan, batere libururik gabe. Harkaitz Cano

Kako-oker ez zen Peter baino eskasagoa ezpatarekin, baina ez zen hain bizkorra **eskumutur**-jokoan eta, bere erasoen indarrari esker, atzerantz egitera behartzen zuen Peter. Julen Gabiria

4 irud/hed

Zain urdinez beteriko esku bat estutu zuen, alkandoraren **eskumutur** gogor distiratsu batean bildua. Lopez de Arana

Lebita bat gorrimina orkatiletaraino iristen zitzaiona, azpian amila bat beltza eta atorra bat zuria, **eskumutur** bakoitzean urrezko hariz brodatutako lili lore bana elkarturik -Borbondarren zigilu-, galtzak more-kolore, zapata zilarrezko belarridun eta zurrumadunak, buruan lurrin urez bustitako ile-ordea eta eskuan makila, karguari zegokiona. Felipe Juaristi

5 ukabila.

Argi bitxi bat zeraman alboan, eta txikia: zuetako edonoren **eskumuturra** baino handiagoa ez zen izango argi hura, eta gelan bueltaka hasi zen, bizirik balego legez. Julen Gabiria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere eskumutur (6); **bere eskumuturreko** (3); **eskumutur eta** (4); **eskumutur fina** (3); **eskumuturra eta** (4); **eskumuturrak eta** (4); **eskumuturrean eta** (7); **eskumuturrean min** (3); **eskumuturrean min hartu** (3); **eskumuturreko bat** (6); **eskumuturreko erloju** (4); **eskumuturreko erloju bat** (3); **eskumuturreko erlojua** (5); **eskumuturreko erlojuari** (11); **eskumuturreko erlojuari begiratu** (3); **eskumuturreko erlojura** (4); **eskumuturreko telematiko** (5); **eskumuturreko telematiko bat** (5); **eskumuturreko telematikoa** (3); **eskumuturreko urrezko** (3); **eskumuturreko zinta** (3); **eskumuturrekoak eta** (3); **eskumuturrera begiratu** (3); **eskumuturretako zainak** (3); **eskumuturretatik heldu** (4); **eskumuturretik heldu** (12); **eskumuturretik heldu zion** (7); **eskumuturretik heltzen** (3); **eta eskumuturra** (5); **eta eskumuturrak** (9); **eta eskumuturrean** (4); **eta eskumuturreko** (10); **eta eskumuturrekoak** (7); **eta eskumuturretan** (3); **ezkerreko eskumuturrean** (5); **gure eskumuturreko** (5); **nuen eskumuturrean** (3)

---

eskumutureko *iz* eskumuturrean jartzen den katetxoa edo kidekoa.

Berez, ez zitzaizkion gustatzen **eskumuturrekoak** eta eraztunak erabiltzen zituzten gizon kanpotarrak; emakume bitxiz hornituegiak ere ez, bestalde. Ramon Saizarbitoria

Bitxiz apaindu zintudan: **eskumuturrekoak** jarri nizkizun, katea lepoan. Elizen arteko biblia

Gamelu guztiak ase zirenean, hartu zituen morroiak sei gramoko urrezko eraztuna eta ehun gramo baino gehiago zuten urrezko bi **eskumuturreko**. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eskumuturreko telematiko bat (5); **eskumuturreko telematikoa** (3); **eskumuturrekoak eta** (3); **eta eskumuturrekoak** (7)

---

eskunaba *iz* eskua**.

Eta labana-punta **eskunaban** sartu eta ebaki tipi bat egin, ebakia niri erakutsi, ezpainez miaztu, eta labana luzatu zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

---

eskunarru ik **eskularru**.

---

eskuño *iz adkor* eskutxoa.

Eskuño batez tira nezazu zure ganbaran barnera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

eskuohe ik **esku 11**.

eskuoihal **1** *iz* eskuzapia.

Ostatuko morroiaren besaburutik **eskuoihala** hartu, eta alderik alde xukatu zuen bere aurpegi guria. Jose Morales

Eskuoihala gerritik kendu, tolestu eta armairuan sartu zuen. Lander Garro

Idazkariak arrautza bat eta txistorra zati bi zituen aurrean, eta **eskuoihala** lepo inguruan loturik. Eider Rodriguez

Gizonak betaurrekoak erantzi eta litxarreriak biltzeko erabiltzen dituen paperezko **eskuoihal** batekin garbitu ditu. Eider Rodriguez

2 irud/hed

Ez zuen behin ere beteko Iruñeko gazteluan bere familiaren **eskuoihala** noizbait paratzeko ametsa. Aingeru Epaltza

---

eskuondo *iz* trebetasuna.

Helenari sudurra ximurtu egin zitzaion eta senarrak, kutxilloa **eskuondoez** hartuz, berebiziko sarraskia egin zuen, hankartean, eta odola irten zitzaion ahotik "hogeita batgarrena, azkena" ahopeka murmurikatzean. Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskuordetu, eskuorde(tu), eskuordetzen **1** du *ad* eskualdatu.

Garunaren agintea nerbio-sistemako aginte maila apalagoetara **eskuordetzeko** oso modu eraginkorrik ez balego, are larriagoa litzateke gainkargaren arriskua. Irene Aldasoro

2 (era burutua izenondo gisa)

Konstituzioa eskuan, argi dago norena den jatorrizko boterea eta nori dagokion botere **eskuordetua**. Berria - Harian

---

eskuordetze *iz* eskualdatzea.

Batzuk bai, eta gainerakoek **eskuordetze**-gutunak eman dizkidate. Jose Morales

---

eskuorga ik **eskorga**.

---

eskuorri *iz* eskuko orria.

Bere bulegoko atearen azpitik **eskuorri** bat sartu dute: "Emakumeek hitza har dezagun". Oskar Arana

Etxera ailegatu nintzenean, **eskuorri** batzuei begira zeuden gurasoak, eta kalkulagailuari joka. Jesus Mari Mendizabal

Horri aurre egiteko asmoz, Turkiako agintariek milaka **eskuorri** banatuko dituzte aurki informazioa zabaltzeko, eta horren bidez jendearen kontzientziazioan eragiteko. Berria - Gaiak

EAko zinegotzi baten kontra agerturiko **eskuorria** salatu du Bilboko Udalak. Berria - Euskal Herria

Berari buruzko artikulu beltzaileak idazten zituzten egunkarietan, finantza-txostenen itxurarekin, **eskuorriak** eta afixak plazaratzen zituzten. Jose Morales

Propaganda mailan, 11 hilabeteko greba egitearen arrazoiak azalduko dituzte txartelen zein **eskuorrien** bitartez. Berria - Ekonomia

Bitartean, guk, komunistok, **eskuorrietan**, kaleko hormetan eta airean, *lucha obrera, venceremos, proletariado, pueblo* eta horrelako hitzak idazten genituen. Jon Maia

Bestalde, eguneroko elkarretaratzeak egiten eta **eskuorri** informatiboak banatzen jarraitu zuten Genevan, Berlinen eta Parisen ere. Berria - Euskal Herria

Ponentzia «ez da hauteskundeetarako **eskuorri** soil bat», gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Kanpainan, euskarazko **eskuorriak** banatuko dituzte, eta kartelak ere jarriko dituzte Nafarroa osoan. Berria - Euskal Herria

Beste lauk **eskuorri** sortak eskuetan zituztela, Karmelo kalera jo zuten, auzokoei informazioa banatzera. Berria - Euskal Herria

Eskuorri banaketak: goizeko 07: 00etan Donibane Garazin, Donapaleun eta Baionan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskuorri banatuko (5); **eskuorri banatuko dituzte** (3); **eskuorri bat** (3); **eskuorriak banatu** (8); **eskuorriak banatu zituzten** (3); **eskuorriak banatuko** (6); **eskuorriak banatuko dituzte** (5); **eskuorriak banatzen** (6); **eta eskuorriak** (5)

---

eskupe **1** *iz* aginpidea, eskumena.

Horretarako ere, hara, bazian zeruak **eskupe**. Juan Garzia

2 ***eskupean*** eskuaren pean, mendean. ik **manupe 2**.

Une jakin batean, Paris guztia **eskupean** hartu eta gero, Tuileriak dantzarazteko txanda izango zen. Karlos Zabala

Frantziako biologia guztia **eskupean** edukitzeko nahi du horrek institutu hori. Juan Garzia

Baina laster, 1905ean, Errepublikak berak konkordatua hautsi zuelarik, Elizaren atxikitzeko **eskupean** zeukan armarik hoberena, apezen hilabete-saria, galdu zuen. Piarres Xarriton

Horrek ez du erran nahi erresuma guztia **eskupean** zuenik. Aingeru Epaltza

Soriak, bere ogitartekotik, **eskupean** gintuen ordenako saindu fundatzaileari ere ez zion emanen, bere hilobi italiarretik jalgi eta horretara propio gure patioan agertuta ere. Aingeru Epaltza

Neure mezuaren bozeramaile egin zaitut, eta neure **eskupean** babestu. Elizen arteko biblia

Bihar suge hotz batek laztanduko du nire zintzurra, eta dagoeneko sumatu behar nuke palankaren itzuliaren doinu gozoa borreroaren **eskupean**. Koldo Izagirre

· Mintzaldi horietarik gehienak frantsesez egin ziren, lehenik hango apez alemanek beste komandorik ere baitzuten, eta gero haietarik zenbaitek ez zutelakotz mintzatu nahi, behar zuten dokumentazionea **eskupean** ez zutelakoan. Marzel Etxehandi

---

eskupeko **1** *izlag* mendeko; ezkutuko.

Virginia ez zen izan, urte horietan, fortetxo kaxkar bat baino, Chesapeake-eko badian eraikia, Powhatan errege handiaren **eskupeko** lurraldeen erdian. Juan Garzia

Bere **eskupeko** lur guztiak eman baitzizkion garaileari. Juan Garzia

Baina entzun ongi, Gandalf Mithrandir, ni ez naiz zure **eskupeko** tresna izango. Agustin Otsoa

Ez zuen inoiz **eskupeko** diru zikinik onartzen. Jose Morales

Eskupeko diru zikinak onartzeko joera arbuiagarri hori ezinbesteko eta premiazko bilakatu da guztiontzat, are doilor jaio ez direnentzat ere. Jose Morales

2 *iz* zerbitzuren bat egiten duen langileari bezeroak prezioaz gainera sari gisa ematen diona.

Borreroak ez du **eskupeko** edo gabonsaririk onartzen; are gutxiago sobornorik. Karlos Linazasoro

Dirua erabiltzen du don Justinianok, honi sari bat, hari **eskupeko** bat... Jendearen Jainkoa dirua baita, eta diruz dena lortzen baita. Joan Mari Irigoien

-Neska-mutil asko turisten atzetik ibiltzen dira, haien gidari izateko, **eskupeko** baten bila. Jon Muñoz

Eskupeko legez 8 dolar eman nien eta ondo pozik gelditu ziren, itxuraz. Edorta Jimenez

Zuen etxean morroi bati **eskupeko** bat ematen diodanean, haien bizitzaren zerbait xahutzen diat. Xabier Olarra

Semeak, ordea, ez zebiltzan aitaren bidetik; diruzalekeriari emanak, **eskupekoak** onartzen zituzten eta epai okerrak egiten. Elizen arteko biblia

Danimarkan edo Estatu Batuetan bazkal ondoan uzten den **eskupeko** horrekin hamar lagunek bazkaldu dezakete ederki Iraken. Pello Salaburu

Marinelak ez zion kasurik egin, eta **eskupeko** on bat eman zion neskari. Iban Zaldua

- **Eskupeko** ona eman diet guztiei. Matías Múgica

Utzi dena neure esku: **eskupeko** eder bat eta kitto. Alberto Ladron Arana

-Aurrera, bada, eta **eskupeko** galanta hiretzat, bihar goizean Jekaterinburgen baldin bagaude! Karlos Zabala

Halako elkarrizketa bizia eduki zuen saltzailearekin, erosketaz aparte lortu nahi zuena lortu ahal izateko, horretarako normala dena baino **eskupeko** handiagoa eman behar izan zuen. Jon Alonso

"Bravo por el vasquito!" egin zuela algara Peronek, eta bere morroiei agindu ziela emateko mutikoari **eskupeko** gizen bat, hala esan omen zuen, "gordo". Koldo Izagirre

Adinekoak ez garenon tarifa gehi **eskupeko** txiki bat utzi dut zuhariak egunkarien gainean edukitzen duen saskitxoan. Koldo Izagirre

Agian Jainkoari zerbitzatzeko loriarekin konformatuko direla, **eskupeko** arrazoizkoa, nekeak direla-ta, aparte. Jon Alonso

Nora sarrerako bi estatua zuriren arteko *chaise longue*an utzi, eta ez **eskupeko** ez esker on, zirgariek marmarka alde egin omen zuten hoteletik. Anjel Lertxundi

3 irud/hed

Sopranoak, **eskupeko** moduan, Wagnerren Trauber izeneko liederra eskaini zigun. Berria - Kultura

Sabine Meyer benetako artista bat da instrumentuaren menperatze lanetan, **eskupeko** txikian azpimarratu zuen moduan. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan)

Hiltzeko zorian banengo bezala pentsatu nahi dut ea nolako tailua eta neurria eduki izan nahiko nukeen orduan neure **eskupeko** banatze-lanean. Patxi Altuna

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eskupeko bat (4); **eskupeko baten** (3); **eskupeko diru** (6); **eskupeko diru zikinak** (3); **eskupeko eder** (5); **eskupeko eder bat** (4); **eskupekoa eman** (6); **eskupekoa jaso** (3); **eskupekoak ematen** (3); **eta eskupeko** (4); **eta eskupekoa** (4)

---

eskupekozale *(orobat **eskupeko-zale**) izond* eskupekoen zalea dena.

Gainerakoetarako, bereiz itzazu herri osoaren artetik gizon iaioak, Jainkoari begirune diotenak, fidagarriak eta **eskupekozale** ez direnak, eta ezarri mila, ehun, berrogeita hamar eta hamarreko taldeen buru. Elizen arteko biblia

Denak **eskupeko** -zale, erregalo-gose. Elizen arteko biblia

---

eskuperatu, eskupera(tu), eskuperatzen du *ad* eskupean jarri, mendean eduki.

Zientziaren aurkako salaketarik larriena egiten zaio aspaldion ingeniaritza genetikoari: ahala ematen diela biologoei, alegia, itsuski lardastu eta **eskuperatzeko** gizakiaren hala gorputza nola gogoa. Juan Garzia

Alexandria, **eskuperaturik**, alferrik aritu zen Zesarri urrikalmendu eske; urtebete gabe legioek garaitiaren berri eman zuten, baina nik doi-doi erdietsi nuen Marte-ren begitartea ikustatzerik. Juan Garzia

Charlestowngo gobernadoreak, handik iragaten ari zela ohartarazia, Rhet koronelari kargua eman zion hura **eskuperatzeko** Sullivans uhartean. Juan Garzia

Chamberlain jukutrian eroririk itzulia zen Monakotik, Hitler Pragan sartua zen tiro bat ere gabe, Francok Bartzelona **eskuperatua** zuen eta Madrilen txanda zen orain. Juan Garzia

---

eskuperatze *iz* eskupean jartzea, mendean ekukitzea.

Alta, **eskuperatze** tekniko-zibilizatzaile baten mendean, kulturen desegite suntsitzaileak gizateria osorako galera dakar, gizateriak kultur aniztasunean baitu altxor baliotsuena. Askoren artean

---

eskupeta ik **eskopeta**.

---

eskupilatu, eskupila(tu), eskupilatzen du *ad* esku artean erabili.

Erabiltzeko, **eskupilatzeko**, fotokopiatzeko egina. Herria

---

eskupilota *iz* euskal kirola, bi lagun edo talderen artean eskuz pilota horma baten kontra jaurtiz jokatzen dena.

Dudarik ez, **eskupilota** ere, beste joko asko bezala, gizarte osora zabalduko zela gero, halamoduko jendearen eskutik jauntxoen entretenigarri. Patziku Perurena

Pilotazaleek, **eskupilotak** oro har, ez zuten merezi joan den larunbatean, Iruñeko Labriten, jasandako tratu txarra. Berria - Kirola

-Hire aitak futbolean nahi hinduen, edo **eskupilotan**, edo... ez zakiat, bestelako kirol batean, baina inondik inora ez boxeoan. Paddy Rekalde

Euria egiten zuenean aterpera sartzen ginen baloiarekin eta han jokatzen genuen, **eskupilotaren** legean, baloi ordurako bustiarekin. Joseba Sarrionandia

Eskupilota profesionalak hiru txapelketa nagusi ditu: Eskuz Banakakoa, Eskuz Binakakoa eta Lau t'erdia. Berria - Kirola

---

eskupoltsa ik **esku 11b**.

---

eskuprograma ik **esku 11c**.

---

eskuraerraz *izond* erraz eskuratzen dena.

Itzulpenaren argitaldi honen arabera egingo dira aipamenak, hemen Donostian KMko1900eko "mailegaezina" baino **eskuraerrazagoa** baita; frantsesez, ez UPV-EHUko bibliotekan eta ez KM Kulturunean dago noski liburu hori. Koldo Izagirre

eskuraezin *izond* ezin eskuratuzkoa.

Une haietan zoriontsua ematen zuen, mugarik gabeko zoriontasun **eskuraezin** bat erdietsi izanaren pozak harrapatua. Fernando Rey

Jainkosa helezin eta **eskuraezin** bat. Joan Mari Irigoien

Jainkosa zen neurrian baitzen emakume hura ene amets **eskuraezinen** neurriko. Joan Mari Irigoien

Ezin dugu esan internismoa hasierako kartesianismoarekin guztiz bat datorrenik, errealismo zuzenarekin baizik, ez baitu ukatzen, besteak beste, pertsona baten ikuspuntutik gertakizun **eskuraezinik** dagoenik. Askoren artean

Tresna erraldoiak, **eskuraezinak** behar ziren edozer aztertzeko: azeleragailuak, sateliteak, laborategi eskergak. Fernando Morillo

Azkenik, Ilustrazioaren amets ausart eta **eskuraezina** non geratu zaigun galdetzen da. Askoren artean

Flotatzen ari zen analogia bat bezalakoa zen, ia **eskuraezina**. Monika Etxebarria

Izan besteen etengabeko presentziak sortutako deserotasunagatik, izan denbora eta espazio aldaketaren zurrunbiloagatik, izan bakardade desiratu bezain **eskuraezinagatik**, estrainio sentitu naiz. Patxi Zubizarreta

Zuhurtzia **eskuraezina** da burugabearentzat, ez da gauza jendaurrean ahoa zabaltzeko. Elizen arteko biblia

Hogei urte lehenago ere berdin egiten zuen, neska honetaz edo hartaz argibide guretako **eskuraezinak** emanda gure miresmenaren ordaina biltzerakoan. Aingeru Epaltza

Eskua barruan sartu, arima ukitu, eta arimaren barruan Adelaren irudia aurkitu dut, bizitzaren Nilo horren sinbolo **eskuraezin** gisa, baina, aldi berean, egunsenti kizkur-eder gisa. Juan Kruz Igerabide

Oro aurreikuste hori, aldiz, **eskuraezineko** xedea da. Andres Urrutia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskuraezina da** (3)

---

eskuragai *adlag* eskuratzeko moduan.

Musika entzungai eta **eskuragai** sarean. Berria - Kultura

Horietako asko eta asko artxibatuta geratzen dira, nahi denean **eskuragai**. Juan Luis Zabala

Txartelak aitzinetik **eskuragai** (10 euro) Baionako Mattin Megadendan, Pausuko Xaia ostatuan, Donibane Garaziko Irulegiko Irratian eta Baigorriko Bixentainian. Herria

Paperean gaztelaniazko hainbat egunkariren aleak izan ohi dira **eskuragai** udal liburutegian. Berria - Euskal Herria

Alegiazko lurralde jori eta aberatsak irudikatu zituen mundu urrunetan, askatasuna eta zoriona **eskuragai** ziren paradisu urrutiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eraikuntza arloko istripu hilgarrien beherakada nabarmendu du, batik bat, «Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Lan sailaren erronka nagusietako bat» izan dela argudiatuta. www.osalan.net helbidean daude **eskuragai** datu guztiak. Berria - Ekonomia

Dagoenekoz abiatuak dira zazpi hizkuntzatako itzulpen lanak, eta **eskuragai** dago S@rean ere: www.inmortalia.com/onenak. Iñaki Segurola

Ikusi genuen ezinbestekoa zela D eredua Iruñeko Alde Zaharrean **eskuragai** jartzea, baina Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak ez zuen horrelakorik nahi, eta ahalegin handiak egin behar izan genituen. Berria - Harian

Funtsezkoa da etxean bertan **eskuragai** edukitzea gure dokumentazioa, asko erraztuko du lana, eta hori nazio eraikuntzan urrats bat izango da. Berria - Harian

Azkenean, Kanadako Amazonen webgunean aurkitu nuen François Paréren obra **eskuragai**. Berria - Kultura

• **2** *izond* eskuratzeko modukoa.

Zalantzazkoa da hizkuntzak zuzenean esanahia egotzi ahal izateko sendotasunaz erabiltzen ote dituen gramatikako tresna **eskuragaiak**. Itziar Laka

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ere eskuragai** (4)

---

eskuragaitz *izond* eskuratzen zaila, ia eskuraezina.

Nork egotzi ezer, beraz, helburu **eskuragaitza** duen talde horretako buruzagiari. Anton Garikano

Badaki ere, ez duela amets **eskuragaitzik**: Ez naiz auto eta etxe ederraren gibeletik ari. Berria - Harian

Isiltasuna genuen lohiz eginiko irudi, **eskuragaitz** eta ikusezina, ukibera, ordea, garbitik zikinera joanik barne-muinak eta barne-zainak itxuraldatzen baitzituen, behin eta berriro, behin eta berriro. Felipe Juaristi

Baina baita **eskuragaitzago** ere. Txillardegi

Metxa eta Luxemburg bezalako iraultzaile herren baina zuzenei **eskuragaitz** bilakatu die agintaritza patu ankerrak, Mao zein Castro ibiltari eta mendigoizale arinei ez bezala. Markos Zapiain

Hortik dator bere ezarpena izan dadila aldi berean hain enigmatikoa (azterketarako hain **eskuragaitza**, ekinaldi absolutuaren eran hain estutua) eta hain balioztatua (aldi berean sorrera eta oinarri modura balio du eta). Xabier Arregi

---

eskuragarri *izond* eskura daitekeena, eskuratzeko modukoa.

Gero eta herritar gehiagok eskuratu ahal izango dutelako etxea prezio **eskuragarrian**. Berria - Euskal Herria

Hor euskal liburuen eskubide **eskuragarrien** gidaren berrargitalpen gaurkotua eskainiko dute. Berria - Kultura

Lan honetan darabilzkigun kontzeptuak inoizko erradikalenak dira, baina modu **eskuragarrian** emanak daude. Berria - Kultura

Baina Arcon badira lan **eskuragarriagoak** ere. Berria - Kultura

Baina orain arte hori egiteko tresna **eskuragarririk** ez da egon. Berria - Kultura

Eskaintzen digun soinu unibertsoa oso hurbila zaigu, lurtarra, egunerokoa, **eskuragarria** eta ulergarria. Berria - Harian

Langabetu eta gazteek herrian berean bizitzeko bizitoki **eskuragarriak** izan ditzaten. Herria

Botikak denentzako **eskuragarri** izatea da orain garrantzitsuena. Berria - Gaiak

Oinarrizko botikak **eskuragarri** jartzea gure esku dago. Berria - Gaiak

Ostiraletik aurrera pentsu ekologikoa **eskuragarri** izango da Goierriko Nekazaritza Kooperatibaren egoitzan, Olaberrian. Berria - Ekonomia

Ondasun kolektiboa, "gizabanako batek, familia batek edo enpresa batek kontsumiturik, beste kontsumitzaile posibleei ondasun horren zenbateko **eskuragarria** urritzen ez zaien" hura da. Koro Navarro

Seme-alaben sexua hautatzeko aukera, bestalde, gero eta zabalduagoa dago eta **eskuragarriagoa** da Txinako gizartean. Berria - Gaiak

Emazteek laguntza gehiago behar dutelako, laguntza **eskuragarriagoa** izan dadila eskatu zuten. Berria - Harian

Gauzak aldatu egin ziren, ordea, 1949an Marcel Bich jaunak (1914-1994), plastikozko objektuak egiteko makinetan jakitunak, bolaluma merkeago eta **eskuragarriagoak** egiteko ideia izan zuenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Huraxe zuela, une hartan, doluaren sendabiderik **eskuragarriena**, esperantza moldatzeko zeukan tornu bakarra. Imanol Zurutuza

Jainkosa zen neurrian baitzen emakume hura ene amets eskuraezinen neurriko, baina akatsak egiten zuen -sufrimenduak moldatutako akatsak-, aldi berean, **eskuragarri**. Joan Mari Irigoien

Argitalpen **eskuragarri** bat: Roger, Donostia, 2000. Martin Anso

Hizketan, aurrean egon ohi da, edo erakusteko moduan edo era **eskuragarrian**. Patxi Altuna

Poesiara jotzean, Lukrezio egiteekin erakusten ari da egia denentzat **eskuragarri** bat transmititzeko eta lasaitasun askatzaile hori eragiteko gai dela. Xabier Amuriza

Eskuragarri balitz ere, gure baitan bakarrik lortuko genikek, eta ez gugandik at. Anjel Lertxundi

Informazioa eta jakintza **eskuragarriak** dira, ulerterrazak eta kalitatezkoak, baliabide mota bat azken batean beste ezer baino gehiago. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Batetik dio itxaropen arrazionalen teoriak merkatu finantzarioak arrazionalki aritzen direla, eta prezioak, **eskuragarri** den informazioaren arabera, enpresen benetako balio erreala emanez ezartzen direla. Iñaki Heras

Lehengai dudarik gabe ezohikoa zen hura, baina agian besteak baino **eskuragarriagoa** prezioz. Juan Garzia

- **2** (adizlagun gisa)

Gela berean, metro bete gora pilaturik, inprimaketarako neurritan ebakitako paper orri mordo bat ipini genuen, **eskuragarri**. Txillardegi

Gainera, igaroten direnentzat, zuzenean egiten dituzten ikasketen edukiak dira **eskuragarri** dauden bakarrak, normalean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ekimenaren akats nagusia kontzeptuala da, oraingoan erabilgarri edo **eskuragarri** dagoen enplegu kopurua da finko hartzen dena. Iñaki Heras

Eskoziaren independentzia «inoiz baino **eskuragarriago**» ikusten duela esan zuen igandean Alex Salmond Eskoziako Alderdi Nazionaleko buru berriak. Berria - Mundua

Herriko karlista xumeak zeuden **eskuragarri** eta, zerrendan aipatua izan zein ez, **eskuragarrien** zeudenak harrapatu eta herriko eskolara eraman zituzten preso. Joseba Sarrionandia

Osagai-egiturak eta egitura formaldatzaileak, dirudienez, hizkuntzak edukiaren adierazpenerako **eskuragarri** dituen eragiketa sintaktiko nagusiak eskaintzen dituzte. Itziar Laka

Liburu hori New Yorkeko biblioteka publikoan **eskuragarri** duzue. Lopez de Arana

Ekonomia atzeraldia badator, garrantzitsua dela bertako ekonomiak langabeziari gogor aurre egiteko ekonomia politika propioak **eskuragarri** edukitzea. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzitegian eskuragarri (3); **da eskuragarri** (4); **eskuragarri dago** (7); **eskuragarri dago www** (3); **eskuragarri dagoen** (4); **eskuragarri daude** (3); **eskuragarri dauden** (4); **eskuragarri dituen** (3); **eskuragarri izan** (7); **eskuragarri izango** (7); **eskuragarri jartzea** (3); **eta eskuragarriagoa** (3); **eta eskuragarriagoak** (3); **informazioa eskuragarri** (3); **interneten eskuragarri** (5)

---

eskuragarritasun *iz* eskuragarria denaren nolakotasuna.

Eraginkortasuna, **eskuragarritasuna** eta zentzuzko kostua kontuan harturik, pertsonentzat eta merkantzientzat beharrezkoa den eguneroko garraioaren zati garrantzitsu bat bere gain hartzeko gai izango den trenbide sarea behar dugu. Berria - Harian

Eskuragarritasun horren xedeari jarraikiz, sarrerak 16 eurotan izanen dira; langabetu eta ikasleentzat 14 eurotan. Berria - Kultura

Bertsolariaren **eskuragarritasuna**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Administrazio Publikoen **eskuragarritasuna**. Pello Salaburu

Maila makroekonomikoan, kanpoko finantzaketen **eskuragarritasunak** ez dio beti inbertsioen hazkundea ekarri herrialde mailegu-hartzaileari. Koro Navarro

Gure angulak, kokotxak, txipiroiak, **eskuragarritasunaren** aldetik, kabiarraren pareko bilakatzen ari dira. Ramon Saizarbitoria

Kontuan sartzen den diruak erabateko **eskuragarritasuna** izateaz gain, ordainketa altuak eta inolako komisiorik gabe eskaintzen ditu Euskadiko Kutxak merkaturatu berri duen Enpresak Kontuak. Berria - Ekonomia

---

eskuragoko *izond* eskurago dagoena.

Ez ahal dira pentsatutako guztiak kokatuko! Badirudi energia sortzaile **eskuragokoak** badatozela, naturari triskantza apartekorik egiten ez diotenak eta edozein kokagunetan zut ipintzeko tamainakoak. Pello Zabala

---

eskuraketa *iz* eskuratzea.

Atxikimendua, entzumena, **eskuraketa** bainan gaingainetik amodioa. Herria

Salmenta horiek ez daude jada atzera- **eskuraketa** eskubide multzo horiei lotuta. Andres Urrutia

---

eskurako *izond* eskurakoia.

Beharbada, harroputz, moldakaitz eta haserrekorra izanik bera, kontrako tasunak bururarazten dituelako, eta hala guztien burlagai **eskurakoa** bihurtzen. Juan Garzia

Zenbat makil eta bastoi klase, zenbat akuilu eta haga klase, zenbat kirten klase beti **eskurako**, zenbat gereta eta ataka ttiki egunero bost bider eskuz ireki eta ixteko. Patziku Perurena

Soka garestia zenean, plastikoa sortu aurreko garai haietan, zenbat hurritz-azal zerabilten gure baserritarrek gurdi eta leretan, denetariko material **eskurakotan**...! Pello Zabala

Zer esan nahi dute literatur iruzkinlariek, ia hutsik gabe ohi dutenez, hau edo bestea "borgianoa" dela diotenean?: bada, arrazoibidearen eta irudimenaren jolasez gauzatua dela, edo -hitzhutskeria baitu askok baliabiderik **eskurakoena**- literarioa dela, besterik gabe. Juan Garzia

---

eskurakoi *izond* erraz eskuratzen dena.

Bizia jakingarri, **eskurakoi** eta gogorakizun huts bihurtu zaion urte urdinduetan daki zaharrak dakien hori, eta ez bizia bere gorrian lehertzen zen sasoian. Iñaki Segurola

Bere edertasunak, [...], egoteko moduak, eskuak mugitzekoak eta manera zainduek pertsona harroa zela pentsarazi beharko luketelarik ere, zerbait bazuela izaera atsegin, apal eta **eskurakoia** adierazten zuena. Ramon Saizarbitoria

Aldaka harrigarriro arinak iruditu zitzaizkidan, aldi berean sendoak halere, nire Studebaker-aren bolantea bezain **eskurakoiak**, airosak, eta diametroz ere paretsu Azal zuria zuen, ia fluoreszentea, eta, atzetik begiratuta, gorputza erabat ondu gabea zuela iruditu zitzaidan, **eskurakoia** nolabait esateko, txikia izan gabe, eta horrek erakargarriago egiten zuela. Joxe Austin Arrieta

Bere burutik oinetarainoko begiratuagatik ere neskak gorde zuen segurtasun lasai asaldakaitz hark, irribarreak eta burua makurtzeko moduak, topaketa ezatsegin eta begiratu harrapari guztietatik bere adeitasunak eta arroztasun **eskurakoiak** defendituko zutela errugabetasunez jakiteak, dardarka jarri zituen mutilaren hatzak. Koro Navarro

---

eskurapen *iz* eskuratzea.

Herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza dela-eta sortutako ondasun eta eskubideen **eskurapenak**, heriotza dela-eta bizi aseguruen kontratuen onuradunek egindakoak barne. Iñaki Heras

Adimen banandu eta banangarri mordo bat proposatzen du Gardenerrek -ikusmenaren, musikaren, lexikoaren eta abarren arloko adimenak-, guztiak autonomo eta beregainak, ezaguera-esparru bakoitzerako **eskurapen**-ahalmenen errutina eta egitura eta "arau" jakin batzuez eta ziur aski nerbio-sistemako oinarri bereziz hornituak. Xabier Olarra

eskurarazi, erkuraraz(i), eskurarazten du *ad* eskuratzera behartu.

Eman argibideak Josueri; eman bihotz eta adore, bera igaroko baita herria gidatzen, berak **eskuraraziko** dio aurrean duzun lurraldea. Elizen arteko biblia

Limosna lortzen lan egiten duten anaiek sari handia izango dute, eta emaileei ere sari handia irabazarazten eta **eskurarazten** diete. Askoren artean

Zurekin maiteminduta dagoela esateko deitu du, zuk ere maite duzula eta gureak egin duela... esan nion garaipena informazioa **eskuraraziko** zidan nolabaiteko estrategia inprobisatuz. Patxi Zubizarreta

Talmudean Mi-n-h-ko hitz hauek komentatzean "Oinarrizko elementu horiek jakinaraziko zaizkio" doktoreek hau eransten dute: “Epaimahaiburu bati besterik ez zaizkio **eskuraraziko**, eta hori, baldin bihotza atsekabeturik badauka”. Xabier Kintana

---

eskuratu, eskura(tu), eskuratzen **1** du *ad* eskuan hartu; eskura eman; eskuan izatea lortu.

Argazki-kamera **eskuratu** eta hatz dardaratia botoitxoan eta begia leihotxoan ipini zituen. Migel Angel Mintegi

Hartarako, purutxo kaxa **eskuratu**, eta luzatu egin zien. Migel Angel Mintegi

Emaiozu adore, berak **eskuratuko** baitio lurraldea Israel herriari. Elizen arteko biblia

Tiroko errege Hiramek **eskuratu** zion Salomoni nahi bezainbat zedro eta zipres-zur eta urre. Elizen arteko biblia

Kategorien taulak oinarri-esakuneen taularen berezko jarraibidea **eskuratzen** digu, oinarri-esakuneak ez baitira kategorien erabilera objektiboaren erregelak baino. Ibon Uribarri

Jaunak erregearengandik **eskuratzen** du lurra, edo goragoko maila duen beste jaun batengandik, zerbitzu militarren truke. Koro Navarro

Kadimak 34 diputatu lortuko dituela diote azken inkestek eta, beraz, gehiengo absolutua nekez **eskuratuko** du orotara 120 ordezkari daude Legebiltzarrean. Berria - Mundua

Jeltsinek 1999. urtean dimisioa eman zuenean, lehen ministro izendatu zuten eta 2000. urteko bozetan presidentetza **eskuratu** zuen. Berria - Mundua

Putinek bozen %71,2 **eskuratu** ditu, eta orain arteko «lorpen demokratikoak» bermatuko dituela dio. Berria - Mundua

Anaia txikiek 1223an **eskuratua** zuten beren Erregelaren behin betiko baiespena. Askoren artean

Putumayon 15.000 hektarea koka kontrolatzen zituztela, lehen FARC Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarraren esku zeudenak eta borrokan **eskuratuak** eta Bolivarreko hegoaldean beste 20.000 hektarea lehen ELN Askatasun Nazionalerako Armadaren esku zeudenak. Berria - Mundua

Aldez aurretik zehaztutako multzo batean ageri diren ikasgaiak gainditzen baditu ikasleak, holako edo halako titulazioari dagokion agiria **eskuratzeko** aukera izango du urte batzuen buruan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Pakistanen **eskuratuko** informazio gehiena, ordea, duela lau urtetakoa izan daiteke. Berria - Mundua

Zerbitzu publikotzat hartzen bada, jatorri publikoko baliabideak **eskuratzeko** aukera izan beharko lukete unibertsitateek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Kategorien taulak oinarri-esakuneen taularen berezko jarraibidea **eskuratzen** digu, oinarri-esakuneak ez baitira kategorien erabilera objektiboaren erregelak baino. Ibon Uribarri

Zer on **eskuratzen** du lan egiten duenak? Elizen arteko biblia

Herstura larri hartan, Pertsiara joan eta, hango eskualdeetako zergak bilduz, diru asko **eskuratzea** erabaki zuen. horrela, altxor baliotsua pilatuko dute etorkizunerako eta egiazko bizia **eskuratuko**. Elizen arteko biblia

Hirira joaten ziren behar zuten jatekoaren bila eta atez ate **eskuratzen** zuten apurra beste anaiengana ekartzen zuten: Eta are gehiago, ikusmen garbi-garbia **eskuratu** zuen, lehen ez baitzuen ondo ikusten. Askoren artean

Garesti ordainduz **eskuratu** zaituzte Jainkoak: ez bihurtu, beraz, gizakien esklabo. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agintea eskuratu (10); **aise eskuratu** (4); **arrakasta handia eskuratu** (4); **asko eskuratu** (5); **babesa eskuratu** (8); **babesa eskuratu zuen** (4); **baimena eskuratu** (11); **baino gehiago eskuratu** (6); **bakarra eskuratu** (8); **bakarra eskuratu du** (4); **bakea eskuratu** (4); **baloia eskuratu** (4); **bana eskuratu** (4); **bat ere eskuratu** (9); **bat eskuratu** (89); **bat eskuratu behar** (4); **bat eskuratu du** (12); **bat eskuratu dut** (5); **bat eskuratu dute** (5); **bat eskuratu eta** (6); **bat eskuratu nahi** (4); **bat eskuratu nuen** (4); **bat eskuratu zuen** (16); **batean eskuratu** (5); **batek eskuratu** (4); **batzuk eskuratu** (12); **beka eskuratu** (5); **berak eskuratu** (5); **berriro eskuratu** (5); **berriz eskuratu** (10); **berriz eskuratu zuen** (4); **bi puntuak eskuratu** (4); **bidez eskuratu** (6); **boterea eskuratu** (22); **boto eskuratu** (5); **boto eskuratu zituen** (5); **diputatu eskuratu** (9); **diputatu eskuratu zituen** (5); **dirua eskuratu** (7); **ditu eskuratu** (8); **dolar eskuratu** (5); **domina eskuratu** (12); **domina eskuratu zuen** (5); **du eskuratu** (10); **dute eskuratu** (7); **ek eskuratu** (6); **emaitza onak eskuratu** (8); **ere eskuratu** (40); **ere eskuratu du** (11); **ere eskuratu zuen** (8); **esker eskuratu** (8)

eskuratu ahal (95); **eskuratu ahal izan** (21); **eskuratu ahal izango** (33); **eskuratu ahal izateko** (29); **eskuratu ahalko** (6); **eskuratu arren** (6); **eskuratu arte** (11); **eskuratu baino** (6); **eskuratu baino lehen** (5); **eskuratu baitzuen** (9); **eskuratu behar** (45); **eskuratu beharko** (14); **eskuratu beharko ditu** (4); **eskuratu beharra** (6); **eskuratu berri** (21); **eskuratu berri du** (6); **eskuratu berri duen** (4); **eskuratu berria** (5); **eskuratu bezain** (12); **eskuratu bezain laster** (9); **eskuratu ditu** (77); **eskuratu dituela** (5); **eskuratu dituen** (12); **eskuratu ditugu** (10); **eskuratu ditugun** (4); **eskuratu dituzte** (26); **eskuratu du** (160); **eskuratu duela** (8); **eskuratu duen** (18); **eskuratu dugu** (19); **eskuratu dugun** (5); **eskuratu dut** (13); **eskuratu dute** (61); **eskuratu duten** (15); **eskuratu egin** (4); **eskuratu ere** (6); **eskuratu eta** (73); **eskuratu eta bere** (4); **eskuratu ez** (17); **eskuratu ezin** (13); **eskuratu gabe** (8); **eskuratu gura** (8); **eskuratu izan** (7); **eskuratu izana** (5); **eskuratu izanak** (4); **eskuratu nahi** (78); **eskuratu nahi dituzte** (5); **eskuratu nahi du** (10); **eskuratu nahi dugu** (5); **eskuratu nahi izatea** (5); **eskuratu nahian** (9); **eskuratu nahiko** (7); **eskuratu nituen** (8); **eskuratu nuen** (12); **eskuratu ondoren** (19); **eskuratu orduko** (6); **eskuratu ostean** (8); **eskuratu zion** (16); **eskuratu zioten** (4); **eskuratu zituen** (121); **eskuratu zituen eta** (5); **eskuratu zituzten** (33); **eskuratu zizkion** (8); **eskuratu zuela** (7); **eskuratu zuen** (275); **eskuratu zuen atzo** (9); **eskuratu zuen eta** (4); **eskuratu zuen lehen** (4); **eskuratu zuenean** (13); **eskuratu zuenetik** (9); **eskuratu zuten** (54)

); eta eskuratu (15); **euro eskuratu** (15); **euro eskuratu ditu** (6); **ez ditu eskuratu** (8); **ez du eskuratu** (5); **ez zituen eskuratu** (9); **ez zuen eskuratu** (4); **gabe eskuratu** (4); **garaipena eskuratu** (22); **garaipena eskuratu zuen** (8); **garaipenik eskuratu** (6); **gehiago eskuratu** (21); **gehien eskuratu** (5); **gehiengo osoa eskuratu** (4); **gehiengoa eskuratu** (5); **giltza eskuratu** (5); **gobernua eskuratu** (5); **gutxi eskuratu** (4); **guztia eskuratu** (6); **guztiak eskuratu** (6); **handia eskuratu** (7); **handia eskuratu zuen** (5); **handiagoa eskuratu** (4); **hiru puntuak eskuratu** (8); **hoberenaren saria eskuratu** (4); **hori eskuratu** (14); **hura eskuratu** (12); **independentzia eskuratu** (12); **independentzia eskuratu zuenetik** (4); **informazioa eskuratu** (9); **inoiz eskuratu** (5); **jokatzeko txartela eskuratu** (6); **kontratua eskuratu** (4); **kopa eskuratu** (7); **laguntza eskuratu** (8); **laguntzak eskuratu** (5); **lana eskuratu** (4); **lehen garaipena eskuratu** (4); **lehenengo saria eskuratu** (4); **lekua eskuratu** (4); **lekua eskuratu du** (4); **liburua eskuratu** (6); **lidergoa ere eskuratu** (4); **lidergoa eskuratu** (5); **medaila eskuratu** (4); **milioi euro eskuratu** (4); **nobel saria eskuratu** (5); **nola eskuratu** (12); **non eskuratu** (6); **nork eskuratu** (5); **onak eskuratu** (8); **onenaren saria eskuratu** (7); **osoa eskuratu** (5); **postua eskuratu** (8); **presidentetza eskuratu** (5); **puntu bakarra eskuratu** (4); **puntu bat eskuratu** (6); **puntu eskuratu** (19); **puntu eskuratu ditu** (6); **puntu eskuratu zituen** (6); **puntua eskuratu** (7); **puntuak eskuratu** (22); **puntuak eskuratu ahal** (4); **puntuak eskuratu zituen** (6); **sari eskuratu** (8); **sari eskuratu ditu** (6); **saria ere eskuratu** (4); **saria eskuratu** (67); **saria eskuratu du** (16); **saria eskuratu zuen** (23); **sarrera eskuratu** (4); **titulua eskuratu** (10); **toki bat eskuratu** (4); **truke eskuratu** (4); **txapelketa eskuratu** (5); **txartela eskuratu** (29); **txartela eskuratu zuen** (7); **txartelik eskuratu** (4); **urtean eskuratu** (4); **zabala eskuratu** (4); **zituen eskuratu** (9); **zuen eskuratu** (6); **zuten eskuratu** (4)

---

eskuratzaile *iz* zerbait eskuratzen duen pertsona.

Neure etxean tokirik ez zutenez, traba egiten zuten altzariak eta objektuak saltzea espero nuen; umilazioa handia izan zen prezio egokia ordainduko zuen **eskuratzailerik** aurkitu ez nuelako. Joxan Elosegi

---

eskuratze *iz* eskuan hartzea; eskura ematea; eskuan izatea lortzea.

Eskuratze honekin Santander taldea euroguneko lehen bankua izateaz gain Europako laugarrena eta munduko hamargarrena izango da: Abbeyrekin bat eginda 51.000 milioi euroko burtsa kapitalizaziora iritsiko da. Berria - Ekonomia

Oinarri-esakune analitikoak erabat garrantzitsuak eta beharrezkoak dira, baina **eskuratze** benetan berria den sintesi seguru eta zabalerako behar den adigaien nabaritasuna lortzeko besterik ez. Ibon Uribarri

Fenomeno mistikoa beti egon da presente kristau-tradizioan -hori lekukoa **eskuratze** bezala ulerturik- eta kristau-fedearen hasieratik bere adierazpen egokien eta zientifikoki araztuena Teologia negatibo deituan izan du. Joan Mari Lekuona

Jakite bat definitzen da diskurtsoak eskaintzen dituen erabilpen eta **eskuratze** aukeren bidez. Xabier Arregi

Jendeak geroz eta **eskuratze**-ahalmen handiagoa du eta horrek elitearen sormena abortarazi egin du, hein batean. Edorta Agirre

Prekarietatea desberdintasun instituzionalizatu gisa hartu behar da hori, eskubideen aitortza, **eskuratze** eta erabilerari dagokionez ez dute etorkinek bakarrik pairatzen.

Berria - Euskal Herria

---

eskuratzeke *adlag* eskuratu gabe.

Dena dela, eta erreforma egiten den bitartean, Gernikako Estatutuan zehazten diren eta **eskuratzeke** dauden tranferentzia guztiak lortzeko konpromisoa hartu zuen Lopezek. Berria - Harian

Barkosek iragarri du **eskuratzeke** dauden eskumenak eskatuko dituela urte politiko berrian. Berria - Euskal Herria

---

eskursio ik **eskurtsio**.

---

eskurtsio *(orobat **eskursio**) iz*

Osabarekin hitz egin behar diat, ea laster **eskurtsioa** egiterik dugun: Jon, Amagoia, osaba eta laurok Ondarroara. Xabier Etxabe

Itzulitakoan, hizketan hasi eta txangoaren - **eskurtsioaren**, ibilaldiaren...- inpresioak kontatu genizkion elkarri. Bernardo Atxaga

Westminster Bridge ondoan zeuden, Tamesis ibai ertzean, ea ontzia noiz iritsiko **eskurtsioari** hasiera emateko. Joxemari Iturralde

Kolegioko mojek **eskurtsioan** eraman gintuzten. Bernardo Atxaga

Abortua jasandakoen kasuan normalki horrela gertatzen zela esan baitzion Tamesis ibaitik **eskurtsioan** berarekin joandako neska haietako batek. Joxemari Iturralde

Ez zekien, ibai- **eskurtsio** hura zela eta, zergatik esan zion azkenean baietz logelako neskatoari. Joxemari Iturralde

---

eskurtsu *iz* digresioa.

Egia da, hala ere, pasio horrek berak daramala egilea batzuetan oreka galtzera eta beharrezkoak ez diren **eskurtsuak** eta iruzkinak egitera, edo atzera-aurrera batzuetan nahasgarriak egitera. Berria - Kultura

---

eskusa *iz* **

Bat eta bestea bere gain hartu ditu Ben Laden haren Al Qaida alderakoak, bere gisan **eskusa** batzu ere eginez tokiko jendearen kontra. Herria

Eskusa edo eskusatei, herritarretan dira halere hilak eta zaurituak. Herria

---

eskusadu *iz* komuna.

-Zer darabilek **eskusaduan** hainbeste denboran, mutil? Juan Garzia

Kaltetsua duk denbora asko egitea **eskusaduan**. Juan Garzia

- **Eskusadutik** irteteko esan diat, mutil. Juan Garzia

---

eskusartze **1** *iz* egiteko batean eskubiderik gabe parte hartzea. ik **esku 16**.

Ez dut inolako **eskusartzerik** izan, banku sekretuaren auzi horretan. Berria - Mundua

Politikoak agintari sekularrak iraintzeko arrazoizko zioa ematen du, **eskusartzea** iruditzen baitzitzaien beren eginbeharren egikaritzan. Iñaki Mendiguren

Orduan argia da bertatik egindako inferentziek adimenaren erabilera transzendental soila barnebil dezaketela, eta honek esperientziaren **eskusartze** oro baztertzen du, eta bere aurrerabideaz ezin dugu adigai abantailatsurik izan, gorago erakutsi dugun legez. Ibon Uribarri

2 zirri egitea.

Ez sudur zabaleko gazterik Kubako hondartza batean, ez saunarik, ez ordu txikietako **eskusartze** alkoholiko eta anonimorik modaz haratagoko diskoteketan, ez ezer. Eider Rodriguez

3 parte hartzea.

Zubiaren arabera, «guztien **eskusartzerik** gabe, Izarrek ez du etorkizunik izango». Berria - Ekonomia

---

eskusaski *iz* eskuko saskia.

Hebrida uharteetan, adibidez, otsailaren 1ean, gauean oherakoan, garagar bala bat hartu, emakume soinekotxoak jantzi eta **eskusaski** batean etzanda gordetzen zuten, makilatxo bat ondoan zuela: Brigidaren ohea deituko zioten. Pello Zabala

---

eskusatu, eskusa(tu), eskusatzen da *ad* aitzakiatu, desenkusatu.

Jacksoni ez diote utziko saria ematen, «jendeak Superbowleko jaialditik irudi hori soilik gordetzen duenez gauza bera gerta ez dadin Grammyekin», **eskusatu** dira antolatzaileak. Berria - Kultura

"Logalez puskatzen nago," **eskusatu** zen. Pablo Sastre

Aita, beretik, alde batera bere alabaz oso harro, bestera, berriz, babesgabe sentitzen da harekin; sapa errusieran, **eskusatu** egiten da: [...]. Pablo Sastre

---

eskusoinu **1** *iz* musika tresna, tekla edo botoiduna, jotzen den bitartean besoez eragiten zaion hauspo bat duena, erromerietan eta erabiltzen dena. ik **soinu 8**.

Andonik berdin jotzen zuen txistua, atabala, **eskusoinua**. Koldo Izagirre

Eskusoinua jotzen du. Xabier Montoia

Auzoko **eskusoinu** batek infinituki ekiten zion *La Cumparsita*ri, kantu zaharra delako ustekeria irentsarazi diotelako hainbat jendek atsegin duen fitskeria samin-espantuzko horri. Juan Garzia

Beharbada, elkarrekin bizi izan ginenenean bezala, negarrez lepora oldartuko zitzaidan eta nik bere taile liraina besarkatuko nion, negar zotinekin bere saihetsak **eskusoinu** baten hauspoa bezala mugitzen ziren bitartean, lepoan behera bere malkoen beroa labaintzen sentituz. Joxean Agirre

Aspaldian ari zen gure plazetan luzaidar adiskidea bazterren alaitzen edo alegeratzen bere **eskusoinuaren** bidez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dantzan hasi zen, **eskusoinuaren** musikaz eta Julenek hartutako panderoaren erritmo desastrosoaz lagundurik. Jon Arretxe

Eskusoinuen nota haiek ziren patuak aukeratutako ahotsak, jendearengan, beren errua gogoraraztearekin batera haien kontzientzia mortuak irazeki eta aurrerantzean

txirotasunak haien bizitzari zemaion krudeltasunean gupidari eta errukiari leku bat egin beharraren sentimendua sorrarazteko. Pako Aristi

Kantuaren negarrari **eskusoinu** ttar batekin lagunduko zion itsuak. Patziku Perurena

Berehala, **eskusoinu** tipia hartu eta, hauspoari eraginez interpretatuko du neskatila itsuak, ahizpak ezin adierazi dion sentimendua, melodia. Patziku Perurena

Eskusoinu joilea zuten betiko Panpi Luro. Herria

2 irud/hed

Gero, begiak bildurik egon nintzen luzaz, denboraren **eskusoinuan**. Anjel Lertxundi

---

eskusoinulari *iz* eskusoinu-jotzailea.

Kaxiano Ibarguren antzuolar **eskusoinulari** eta kantari zena omendu dute Lizartzan, musikagintza eta bertsularitzan egindako lanak gogoaraziz. Herria

Hala nola 60 presuna hurbildu diren ortzegun aratsean, antzerkien gozatzeko, eta 150 presuna ostirale aratseko afarian, Anari kantaria eta Jesus Aured **eskusoinulariaren** inguruan, larunbateko eguna ere ospetsuki iragan delarik. Herria

Gaualdia segitu da apairu batekin Baillea ostatuan, kantu xaramelan, hor ginuelarik etorria bazterren alaitzeko betiko Panpi Luro **eskusoinulari** ospetsua, bere ikaslea zuelarik gitarrean. Herria

Animatzeko, hor izanen ditugu Muriel Etcheverry **eskusoinulari** gaztea eta hunen musikari lagunak, Mixel, Elixabet, Maia... Herria

---

eskustatu ik **eskuztatu**.

---

eskutada *iz* eskukada.

Eseri zen, bada, Rut igitarien ondoan eta Boozek xigortutako ale **eskutada** bat eskaini zion. Elizen arteko biblia

Eskutada bat ogi-irin baizik ez dut katiluan, eta olio pittin bat pitxerrean. Elizen arteko biblia

Eskua luzatzen zuten dendetako erakusmahaien ondotik igarotzean, eta aran bat, **eskutada** bat gerezi, bakailao puska bat osten. Karlos Zabala

Katilu bat esne bete, eta bi **eskutada** labore bota zizkion. Jon Muñoz

Gero, gurdiaren atzeko ohola altxaturik, zenbait **eskutada** lastorekin espaloian bere lau metroak markatu, eta barazkiak sortaz sorta emateko eskatu zion Florenti mesedez. Karlos Zabala

Oparitik irin-**eskutada** hartuko du oroigarri gisa eta aldare gainean erreko. Ondoren, ura edanaraziko dio emakumeari. Elizen arteko biblia

Hauexek dira -erran zuen paper **eskutada** bat ateraz maletako poltsiko batetik. Alberto Ladron Arana

Dürer-en akuarelak, esate baterako (bioleta sorta bat, belar-**eskutada** bat, untxi bat irudikatzen dutenak), ez dira horrenbeste ahalegintzen espazioaren sakontasuna adierazten, ehundurak irudikatzen baizik. Josu Zabaleta

-Geratu zaudeten lekuan -esan zien, ahots latz berberaz, eta poliki zutitu zen bere **eskutada** sugarra aurrean zuela. Iñaki Mendiguren

Egunkari sorta hanka artean estutu eta, poltsikotik dirupaper **eskutada** handi bat aterata, bost mila liren bueltak kontatzen hasi zen On Camillorentzat. Koldo Biguri

---

eskutadaka *adlag* eskukadaka.

Muinoek **eskutadaka** bidaltzen zuten haize beltz okaztagarria haran aldera, beherantz. Karlos Linazasoro

Zutitu egiten da, eta arropei itsatsita jarraitzen duen azken sugarra itzaltzen du **eskutadaka**. Oskar Arana

---

eskutari ik **ezkutari**.

---

eskutarte ik **eskuarte**.

---

eskutelefono *(corpusean **eskutelefon** soilik) iz* eskuko telefonoa.

Villefranche sur Mer, bigarren portutxoa bai, gu han sartu, puskak bestalde igorriak baititugu baina... gure balisa eta pusken erdiak falta! Dudamudaka batzu, zenbaitek **eskutelefona** harekin dei eta solas eta erasia... azkenean ez duguia jakiten ez girela xuxen: gu urrunegi joanak, bizpahiru autokarren artean gure puskak nahasi dituztela, eta berriz itzuli behar dugula gibelka. Herria

---

eskutiko *izlag eskutik*-i dagokion izenlaguna, adierazten denaren eskutik datorrena.

Kartoitxo bat, Ruche jaunaren **eskutiko** bi lerrorekin: [...]. Jon Muñoz

Aubrey-ren **eskutiko** *Pertsona gailenen biziak* gogobetekoago dira. Juan Garzia

Lehenik, beronen aita hila; hurrena, zure semea joana, bere **eskutiko** lazkeriak berak erbestarazia hemendik Luzaroan, fisikan eta fisikaren **eskutiko** teknologietan eduki du jarria arreta gaitzespen publikoak. Juan Garzia

Berorren anaiaren hilketa, esamesen arabera nire semearen **eskutikoa**; berorren iloba Anaren kasua, hark bortxatua berorren ustez; inoiz berorri egindako irainak eta begirune falta, edonork onar ditzakeen motiboak dira.Harro-harro zegoen, beraren **eskutikoak** zirela-eta asmakuntza asko eta asko. Juan Garzia

Casellik erlikiok disimulurik gabeko goganbehar halakoz eskuratzen zizkigun: zientziaren ogia zen, P. ren ogia, eta azken finean beraren jeneroa zen orobat, beraren **eskutikoa**; batek jakin profano esperientziagabeok zer egingo genuen, gure galduan, harekin. Juan Garzia

---

eskutila *iz* eskutokia.

Ohe ondoan mesanotxea eta haren gainean lanpara, pantaila berde ilun batez estalia; harantzago, **eskutila** zuriko ate bat, zeinaren atzean, antza, zerbait misteriosoa ostentzen zen, Andreasentzat misteriosoa, behinik behin. Matías Mujika

Eskutila zuriko ateak kitzika egiten zion, eta beldurra garaiturik, eta artean hoteletako gelen ohiturarik ez bazuen ere, jeiki eta erabaki zuen ateak nora ematen zuen ikertzea. Matías Mujika

---

eskutismo *iz eskaut* mugimenduari dagokiona.

Gazteen moldakuntza muimenduetan, hor zituen ere Lafitten "scout" edo **eskutismokoa**, eta lan haundia zuen berak egiten denbora heietan Uztaritzen: opor edo bakantza denboran, gorputza bera heziz arimarekin batean, egiten zituzten balentria ederrak, xintxuketa, kurritze, kanpo-lan eta nekatze... Herria

Aldiz hiritar kirolari ez zirenekin, jo beste motatik, **eskutismo**, arte-olerki-literatura edo antzerki solas eta hots, denetako balio zuen Piarres apezak. Herria

---

eskutitz *(ETCn 6.409 agerraldi; cf **karta** ETCn 9.982 agerraldi)* *iz* **1** norbaitek beste norbaiti zerbait adieraziz bidaltzen dion izkribu itxia. ik **gutun; karta**.

Eskutitza gutunazal batean sartu eta armarri inperialen zigiluaz lakratu zuten. Karlos Zabala

Eskutitz bat bidali nion, eskerrak emateko; ez nuen erantzunik jaso. Iban Zaldua

Oraintxe irakurri dut bidali zenidan **eskutitza**. Iñaki Mendiguren

Aitak nola edo hala jakin zuen Kalkutan zegoela eta **eskutitza** egin zion, arren etxera itzultzeko. Gotzon Garate

Ene lagun eta Lehendakari errespetatua: apirilaren 12ko zure **eskutitza** jaso dut. Edorta Jimenez

Eskutitz hau eskuratzen dizuna Blas Gomez duzu; zure zerbitzari ona eta zure ikaslea nahi dena izan. Piarres Xarriton

Hemen -dio **eskutitzak** hurrengo- denok gaudek hi ikusteko gogo itzelarekin eta, ea noiz hatorren, denok elkarrekin martini on bati trago batzuk jotzeko. Edorta Jimenez

Emakumeak **eskutitz** bat idatzi zion, esanez Kansaira itzultzen bazen gustura ikusiko zukeela Egutxi berriro. Ibon Uribarri

Haren **eskutitzak** irakurriz, hunkitu egin nintzen. Ander Irizar

Orduan aberriari eginiko zerbitzuengatik esker oneko **eskutitza** idatzi nion Ernesti. Edorta Jimenez

Nik, ordea, ez nituen jaso hiru **eskutitz** haiek. Ander Irizar

Hermioneren **eskutitza** ireki eta ozen irakurtzen hasi zen: [...]. Iñaki Mendiguren

Jose Antonio Agirreri hurrengo urteko urriaren 21ean zuzendurik doan **eskutitza** sinatzen duten bost bapore-patroiek. Edorta Jimenez

Zergatik ez zenien erantzun nire **eskutitzei**? Ander Irizar

Astean **eskutitz** bat, niri edo etxekoei, eta hura zabalik, noski. Jokin Urain

Aurtengo martxoaren 1eko **eskutitzaren** zati bat da hori. Berria - Harian

Keinu batez polizi buru nagusiari eser zedin agindurik, lerro gutxiko **eskutitz** bat diktatu zion ahopean. Karlos Zabala

Hilabete eta erdian, eten gabe, izen gabeko **eskutitzak** jaso zituen. Gotzon Garate

Gutun-ontziaren hotsa entzun zuten eta **eskutitzak** plast erori zirela ate ondoko zerrira. Iñaki Mendiguren

Armarri inperialez zigilaturiko **eskutitza**. Karlos Zabala

Ehun britainiarri gaitza izan dezaketela ohartarazi zien Gobernuak, **eskutitz** bidez. Berria - Gaiak

Horregatik bidali dizkiete euren eskaerak **eskutitzez**, eta horregatik agertu ziren atzo prentsaurrekoan. Berria - Kirola

Tinta ikusezinez idatzitako **eskutitzen** bat, agian? Iñaki Mendiguren

Joan den urrian notario aurreko **eskutitza** adostu zuten Fundazioko lehendakari eta idazkari nagusiak, alde batetik; Marlborough Galeriako arduradunak, bestetik galeria horrek du artistaren hainbat artelan saldu era erosteko kontratua sinatuta, Carlos Catalanekin; eta Pilar Oteiza eskultorearen oinordekoak, azkenik. Berria - Kultura

Argitara eman ez badute ere **eskutitzak** hogeita zortzi orrialde dituela eta bertan «nazioarteko arazoak» gainditzeko bideak proposatzen dituela dio Teheranek. Berria - Mundua

Hego Euskal Herrirako, Espainiarako, Andorrarako eta Gibraltarrerako **eskutitzen** zigiluak 0,26tik 0,27ra igoko dira. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Marchand saltokiaz baliatu zen bere krimenak estaltzeko, Egdar Allan Poeren **"Eskutitz** ostua" ipuinak erakusten digun teknika berberaz: ezkutatu nahi dena ageri-agerian ipiniz. Iban Zaldua

Eskutitz luzeak idatzi zizkion Mayolari baina alferrik! Ramuntxo Etxeberri

-Zure amak eta biok **eskutitz** bakan batzuk idatzi genizkion elkarri. Alberto Ladron Arana

Ondoren, eta bagenekienez, bere osoan zetorren Don Carlosek Don Alfonso-Carlos bere anaiari bidalitako **eskutitz** irekia: [...]. Txillardegi

Eskutitz irekia Ramon Saizarbitoriari. Imanol Zurutuza

Lurrean barreiatutako Kutxaren **eskutitz** ireki gabeak eta Eroskiko garagardo latak astean behin biltzen nituen. Iban Zaldua

Horietako bat zen nik hemen kontatu nahi dudan **eskutitz** igorrien kasua. Pello Lizarralde

Paperen artean, Sherlock Holmes pertsonaia lehenengo aldiz azaldu zen A study in scarlet eleberriaren zirriborro bat, idazlearen **eskutitz** pertsonalak eta eskuizkribuak daude. Berria - Kultura

Eskutitz faltsuen banaketa bultzatu zen Aturriko hiriburutik, azpitik sustatutako sasi-matxinadak eta sasi-bakezalekeriak prestatu ziren goitik behera. Txillardegi

Eskutitz administratiboak, pasaporte zaharrak, frantses errepublikaren enbaxadako matrikulazio karta, hegazkin txartel erabiliak, argazki bat. Ramuntxo Etxeberri

eskutitz zertifikatua etxe batera eramatean. Gotzon Garate

'Cyber-café' delako batetik 'e-mail' **eskutitz** elektroniko bat igorri dizu. Ramuntxo Etxeberri

Gazte batek bere izenean datorren **eskutitz** ofiziala hartu eta hatz dardartiz urratuko dio azala. Xabier Montoia

Ofiziala zirudien **eskutitz** bat ikusi zuen Harryk mahai gainean zabalik. Iñaki Mendiguren

Zernahi dela ere, ohoreagatik eta adiskidantzagatik hitz eman diot **eskutitz** ezti hori gaur bertan hartuko zenuela, eta neure hitza ez dezaket jan eta ez dut jan nahi. Jon Muñoz

Hitz horiek erranik, hautsi zuen **eskutitz** ausart hura, bildu zituen puskak sakelan, zutitu zen, eta jalgi. Jon Muñoz

Eskutitz mehatxatzaile eta isilpekoak bidaltzen dizkiguten horiek. Javi Cillero

Kortesiazko **eskutitz** adeitsua zen. Iban Zaldua

Zorigaiztoko **eskutitza**. Berria - Harian

Presazko **eskutitz** baten bidez, egun hartan hiritik ez joateko eskatua zion, harekin hitz egin beharrean zegoela eta. Ander Irizar

Amodiozko **eskutitzen** lehiaketa irabaztea. Iban Zaldua

Mehatxuzko **eskutitzak** ziren. Gotzon Garate

Azkeneko **eskutitza** ezkon aurreko arratsaldekoa da. Ander Irizar

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Interneten **eskutitz** ereduak badaude. Berria - Harian

Kutxa irekitzen du eta xingola urdin batez lotutako **eskutitz**-sorta bat ateratzen du. Antton Olano

Eskutitz-pila bat idatzi behar izan zuen Magiako Ministeriora, nik hau eduki nezan. Iñaki Mendiguren

Mahai gainean **eskutitz**-zorroa utzi zuten, bete betea. Gotzon Garate

Mixima idazle gazteak maisu gisa hartu zuen eta **eskutitz**-harreman luzea izan zuten. Ibon Uribarri

Aldi berean, Artoisko kondearekin **eskutitz** truke oparoa eduki bide zuen eta, garrantzi gutxiko informazioak helaraziz, bere fideltasunaz konbentzitu. Monika Etxebarria

Han etzanda, bere urtebetetzeko unearen zain geratu zen, bere buruari galdezka ea Dursleytarrak oroituko ote ziren batere eta **eskutitz**-idazlea non ote zegoen orduan. Iñaki Mendiguren

Korreotako **eskutitz**-partitzaile mordo batek bidalitako abisuei esker jakin zuen hori. Pello Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aldizkariko zuzendariak esan zion ez zezala besterik bidali, protesta-**eskutitz** asko ari zitzaizkiela iristen bai hiritik eta bai herrietatik. Irene Aldasoro

Laster hasi gara borroka-garai zaharrez hitz egiten: eragozpen-**eskutitz** kolektiboaren urteez, hirian epaitu zuten lehenengo intsumisoaren inguruan eratu zen mugidaz, pankarta erraldoi hura garabi hartatik zintzilikatu genuenekoaz. Iban Zaldua

Badago zer ospatu, esaten ziguten gonbidapen-**eskutitzean**: azken finean, soldadutzak desagertu behar badu, talde antimilitariston lanarengatik izan dela, hein handi batean behintzat. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azken eskutitza (5); **beste eskutitz** (5); **beste eskutitz bat** (4); **bi eskutitz** (4); **bidalitako eskutitz** (7); **bidalitako eskutitza** (4); **bidalitako eskutitzak** (3); **da eskutitza** (6); **duen eskutitza** (4); **eskutitz asko** (3); **eskutitz bana** (7); **eskutitz bana igorri** (3); **eskutitz bat** (115); **eskutitz bat bidali** (11); **eskutitz bat helarazi** (3); **eskutitz bat heldu** (3); **eskutitz bat idatzi** (12); **eskutitz bat igorri** (10); **eskutitz batean** (19); **eskutitz baten** (13); **eskutitz baten bidez** (9); **eskutitz batzuk** (4); **eskutitz bidez** (3); **eskutitz eta** (4); **eskutitz haiek** (3); **eskutitz hau** (12); **eskutitz hori** (7); **eskutitz horiek** (7); **eskutitz horren** (3); **eskutitz horretan** (5); **eskutitz hura** (9); **eskutitza bidali** (9); **eskutitza egin** (3); **eskutitza ere** (4); **eskutitza eta** (4); **eskutitza ez** (4); **eskutitza hartu** (10); **eskutitza idatzi** (3); **eskutitza idazten** (3); **eskutitza igorri** (4); **eskutitza igorri zion** (3); **eskutitza irakurri** (9); **eskutitza iritsi** (3); **eskutitza jaso** (7); **eskutitzak bidali** (3); **eskutitzak eta** (5); **eskutitzak hartu** (3); **eskutitzak idazten** (4); **eskutitzak irakurri** (3); **eskutitzak irakurtzen** (3); **eskutitzak jaso** (4); **eskutitzen bat** (5); **eskutitzen bidez** (4); **eskutitzik ez** (3); **eta eskutitz** (10); **eta eskutitz bat** (3); **eta eskutitza** (4); **eta eskutitzak** (8); **haren eskutitzak** (6); **hiru eskutitz** (4); **hiru eskutitzak** (3); **idatzitako eskutitz** (8); **idatzitako eskutitz bat** (3); **idatzitako eskutitza** (6); **idatzitako eskutitzak** (3); **igorritako eskutitzean** (5); **lehen eskutitza** (4); **marieren eskutitzak** (4); **milaka eskutitz** (3); **nuen eskutitz** (3); **zen eskutitza** (4); **zion eskutitz** (5); **zion eskutitz bat** (3); **zion eskutitza** (3); **zizkion eskutitzak** (3); **zuen eskutitz** (5); **zuen eskutitza** (5); **zure eskutitza** (4); **zure eskutitzak** (5)

---

eskutoki *iz* **1** eskulekua, heldulekua.

Eskutokia zilarrez landua zuen ezpata damaskinatu bat. Juan Garzia

Bidexkak bihurgune ugari zuen eta hauetako bakoitzean ezpataren **eskutokiari** helduta egiten zuten aurrera, erne. Agustin Otsoa

Bere atzean, haztamuka, atearen **eskutokiaren** bila hasi zen. Iñaki Mendiguren

Zalantza une baten ondotik, leihoaren **eskutokiari** eragin zion, hura doi bat zabalduz, eta bi kontraleihoen atzealdean kokatu zen, festa hobeki ikustearren edo. Patxi Zubizarreta

-Hiru zenbatutakoan, Neville -esan zion Lupin maisuak, bere makila ere armairuaren **eskutokira** zuzenduta zuela-. Iñaki Mendiguren

Arraunaren **eskutokia** behera eta atzerantz ekartzen zuten, arraunaren paleta urgainera altxatzeko eta ur tanta batzuk zerizkiola itsasoa ukitu gabe eramateko. Joseba Sarrionandia

Bortitz eutsi zion ate ostekoak **eskutokiari** eragin zionean. Migel Angel Mintegi

Eskutokitik heldu zion te-ontziari. **Eskutoki** handiko ezpata luzea. Jon Muñoz

Eskutoki beltza altxatu zuen, eta ponpa zentrifugoaren kirrinkots larri garratza erregailuaren trumoihots sakonari gainkatu zitzaion. Juan Garzia

Zutitu eta barruko **eskutokiari** eragin nion besterik gabe. Joxan Elosegi

Kokotsa bastoi lodi baten bolizko **eskutokian** bermaturik. Karlos Zabala

Metalezko ate-**eskutoki** eta leiho-hegiak opako eta lakar bilakatzen ziren. Juan Garzia

2 irud/hed

Eta zeren, bertze deusen gainetik, **eskutoki** bat behar bainuen nik mementu hartan, eta ama nuen **eskutoki** eta helduleku. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atearen eskutokiari (3); **bastoiaren eskutokian** (3); **eskutoki bati** (3); **eskutokiari eragin** (3); **eskutokirik gabeko** (3)

---

eskutokidun *izond* eskutokia duena.

Urrezko **eskutokidun** makila zuria zeukan eskuan. Agustin Otsoa

Panamako lasto-kapelu biguin-biguin horietako bat zekarren eskuan, Errusia osoan seguru ezin eros zitekeen bezalakoa, eta bai kanaberazko makila hori, zilarrezko **eskutokiduna**. Matías Múgica

---

eskutrapu *iz* eskuzapia.

Mahaien gainetik **eskutrapua** pasatu, aulkiak zangoz gora mahai gainean jarri, eta zorua erratzaz garbituko duzu. Joseba Sarrionandia

Agatak, **eskutrapua** besoan duela, prestu egiten du korri sukaldeko sutik armairura, armairutik mahaira, ez baitaki patxadaz ibiltzen Sukaldeko harrian bertan garbitu eskuak eta **eskutrapuarekin** lehortu zituen, eseri aurretik. Itziar Otegi

Azkeneko ontziak **eskutrapu** histu batez lehortzen ari nin-tzela, giltza-hotsa. Anjel Lertxundi

Ez nauzu, bada, **eskutrapua** oker pasatzeagatik bidaliko, ezta? Itziar Otegi

---

eskutre *iz* **

Horiek biltzen dute, uste dugun baino neurri handiagoan, mende horren historia aberatsa eta horiek dira ehun urte horien **eskutrea**. Pello Salaburu

Beldur naiz euskal gaietan gauzak ez diren denak xalo eta laño, bizitzaren tolesgabetasunaren **eskutre**. Pello Salaburu

---

eskutsik ik **esku 9a**.

---

eskutsu *izond* eskumen handikoa.

Ezagutu nuen legelari batek zera esaten zuen, honelako errudun trebe eta **eskutsuak** erregearen diru-fabrikan lan egitera zigortu beharko liratekeela, hanketan kateak jarrita. Juan Martin Elexpuru

---

eskutto *iz* eskutxoa.

-Gau on, alferrontzi! -esaten zion eta hatz bat ematen, Dianek bere **eskutxo** arrosaz kiribildu ziezaion.Curtisek gonbidatu bakoitzari luzatu zion, txandaka, bere **eskutxo** belaxka. Mirentxu Larrañaga

---

eskutur **1** *iz* eskumuturra.

Santosek **eskuturra** oratu zion besoa goratuta, baina kolpe bortitz batez baztertu zuen Joseluk. Josu Landa

Da Vinci robotak hiru beso artikulatu ditu, medikuaren **eskuturrak** egin ezingo lituzkeen mugimenduak egiteko. Berria - Gaiak

Urrezko erloju bat **eskuturrean** eta ilargi erdi baten itxurako kateorratz bat durbantean. Patxi Zubizarreta

Klubetan lan egiten duten emakumeek gelako zenbakia eramaten ei dute edo **eskuturrean** lotuta edo bular artean zintzilik. Pako Aristi

Aurrez erabaki gabeko keinu batez behatu zion Damianek **eskuturrean** zeraman ordulariari eta, bai, hamarrak eta hogei ziren, preseski. Hasier Etxeberria

Behatu diozu **eskuturreko** erlojuari. Hasier Etxeberria

Hogeita bi zero azpitik, **eskuturreko** nire erlojuaren arabera. Karlos Linazasoro

Eskuturretik heldu nion, eta hitz-jasa urduria atera zitzaidan: [...]. Anjel Lertxundi

Mukiak ozen zintzatu zituen Antoniak **eskuturretik** ateratako zapiaz, eta arnasaren estua baretzearekin Mentxuren atorraren besoari oratu zion. Josu Landa

2 ***eskuturreko*** *iz* eskumuturreko erlojua edo kidekoa.

Medrano eta Agudorekin Bravo Murillo kaleko bitxi-denda bateko kristalak hautsi eta bertatik erloju eta **eskuturreko** batzuk hartzen ari zela. Pablo Sastre

Ez nizun barkatuko ez onartuko ere biharamunean bidali zenidan **eskuturreko** hau, turkesazko eta diamantezko bihotzarekin. Antton Olano

-Eskuturrekoa begietara zuzenduta- seiak laurden gutxi aldera, eta batere zaratarik egin barik iritsi dira gure logelaraino. Josu Landa

Ezkilak eta **eskuturrekoak** janzten zituen orkatiletan. Koro Navarro

" **Eskuturreko** berde bat eramaten du Jonek", gogoratu du, "eta gelako neska hark bere urtebetetze egunean oparitutako uztaitxo hura ezkerreko belarrian". Jokin Muñoz

---

eskutxo *iz* esku txikia.

Haurrak **eskutxoa** sakelan sartu zuen eta sos batzuk atera zituen. Gotzon Garate

Arraroa zen **eskutxo** hura ene hatzekin konparatzea. Joseba Sarrionandia

-Gau on, alferrontzi! -esaten zion eta hatz bat ematen, Dianek bere **eskutxo** arrosaz kiribildu ziezaion. Mirentxu Larrañaga

Curtisek gonbidatu bakoitzari luzatu zion, txandaka, bere **eskutxo** belaxka. Mirentxu Larrañaga

Haren **eskutxo** meheak zerbait utzi zuen berehala mahai gainean. Jose Morales

Beren **eskutxo** gorrituak mela-mela egiten baitzituzten errekastoetan izotz zatiak harrapatzearren. Juan Garzia

Paulinek begiak zabal-zabalik entzuten zuen, bi **eskutxoak** gurutze, elizan ohi bezala. Karlos Zabala

Enperadore txikiak bi **eskutxoak** elkartu eta otoi egin zuen ekialdera begira, lehenengo, eta mendebaldera, gero. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

eskutxuri *izond* eskuzuria.

Lehengusuekin konparatzen hasi eta maritxu **eskutxuri** bat naiz ni haien aldean, beti paper artean dabilena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ogibide gogorregiak dozak horreek gu biok lako **eskutxurientzat**. Juan Luis Zabala

Berriz ere barre egingo digute kalekume **eskutxurioi**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskutzar *iz adkor* esku handia.

Paseatzera ateratzen zirenean askotan sentitzen zuen bere **eskutzar** hori lepoaren gainean. Jokin Muñoz

Txaplik bere **eskutzarrak** jarri zituen Ane eta Mikelen bizkarretan. Unai Iturriaga

Haren **eskutzarrak** jertsetik heldu zidan, txakurtxo bati bizkarreko larrutik heltzen zaionean bezalaxe. Juan Kruz Igerabide

Poltsikotik zigarro bat atera eta birrinduta utzi zuen bere **eskutzarrarekin**. Koldo Biguri

Gero, On Camilloren gorputz mardulaz eta borrak baino handiagoko **eskutzar** handiez ohartuta, esana zuzendu zuen: [...]. Koldo Biguri

Jesus Haurra bukatuta zegoen jada eta, koloreberrituta eta hain arrosa eta hain argi, bazirudien distira egiten zuela Pepponeren **eskutzar** ilunaren barruan. Koldo Biguri

Egundoko **eskutzarra** luzatu eta Harryren beso osoa astindu zuen. Iñaki Mendiguren

---

eskuxka *iz adkor* esku txikia. ik **eskutxo**.

Hortik badator nola oker dabiltzan gizakien arimak zatitzen ahal direla asmatzen dutenak, hala nola bailitezke beste animatzaileen arimak eta ere buruak edo buruxkak, besoxkak, **eskuxkak** eta animatzen eta formatzen dituzten gorputzeko zatien beste hatz behatzak. Piarres Xarriton

---

eskuxuri *izond adkor* eskuzuria.

Ni neroni frankotan jana naiz baba beltxa etxean, baina, egia esan, ni bezalako **eskuxuri** bat, oraingo burgeskera melenga honetatik, orduko giro latz hartako eltzetik babak ateratzen haste hutsak ere, lotsa ematen dit, eta hobeko dut, atzera, aita xaharrari eman hitza: [...]. Patziku Perurena

---

eskuzabal **1** *izond* duenetik besteei emateko joera duena.

Gero, berezko joera batengatik, aita berriz ikustea zor zion lagunarengana itzuli ziren haren gogoetak, bidelagun **eskuzabal** harengana. Karlos Zabala

Zer egin dute holandarrek hainbeste espero duten laguntza **eskuzabal** hori eman dakien. Josu Zabaleta

Banekien halaber, azken garaietan, karitatezko egite **eskuzabal** baina diskretuetan agertu izan zela delako sentikortasuna, eta orobat musika zientziaren zaletasunean. Koro Navarro

Luggnagg uhartera eginiko bidaian, Gulliver-ek topo egiten du herri adeitsu eta **eskuzabal** batekin. Juan Garzia

Gizon garai eta aldi berean zurrun eta **eskuzabal** haren aurrean apetatsu agertzeko beldurra izan zuen. Agustin Otsoa

Hori zen, beraz, Giuliak beste batzuetan gizon **eskuzabal**, makurgaitz, maitemindu eta seriotzat deskribatu zidana. Juan Garzia

Txarra dena okerragoa denaren kontra defenditzeak ez dio inspiraziorik ematen gaztedi **eskuzabal** bati. Iñaki Heras

Stephenen ahotsak eta keinuak irakasle argi baina **eskuzabal** batenaren imitazio petoak ziren. Xabier Olarra

Aldarrikapen **eskuzabal** eta batzuetan abstraktu samar horiek hezurmamitzen hasten diren. Berria - Mundua

Guk, bere lagunek, Euskal Herriko kultura eta askatasunaren aldeko bere izate borrokalari **eskuzabal** eta nekaezinak merezi duen omenaldia eskaini nahi diogu. Berria - Kultura

Eskuzabal izateko deia. Elizen arteko biblia

Ez izan **eskuzabal** hartzeko eta esku-itxi emateko. Elizen arteko biblia

Horrela erakutsi nahi izan zuen zein **eskuzabal** zen errukiz hartu zituenekin. Elizen arteko biblia

Orduz geroztik zekenkeriara eta arrarotasunera makurtuz joan zen, hainbat nola gaztetan izan baitzen erregekiro **eskuzabal**, emakume eder eta oso maitatuak ohi direnez. Juan Garzia

Zuzenean egin zion hari proposamen dudarik gabe **eskuzabal** bat. Koro Navarro

«**Eskuzabal** eta zuhur» jokatzeko eskatu die EBk eragile guztiei. Berria - Ekonomia

Zein handinahia, dotorea eta gastatzailea zen eta nola hortik iritsi zen behartsuekin **eskuzabal** eta karitatetsu izatera. Askoren artean

Nancyk, beti **eskuzabal** eta barkabera, ez zituen aintzat hartzen zurrumurruak. Oskar Arana

Santxo **"Eskuzabal"** erregea Aldontza Barbastrokorekin ezkondu eta alaba bat izan zuen: Giomar. Martin Anso

2 (adizlagun gisa)

Nik ez nuen artean ikusten **eskuzabal** jokatu zenuela, bihotz onez. Xabier Mendiguren Elizegi

Auzokoek **eskuzabal** lagundu zieten, eta zilar eta urrezko ontziak, ondasunak, abereak eta bitxi ederrak eman zizkieten. Elizen arteko biblia

Tiroko batzuek, gaiztakeria harengatik haserreturik, **eskuzabal** eman zuten laguntza hiletak antolatzeko. Elizen arteko biblia

Mihi gaiztoek zioten Alderdiak **eskuzabal** saritu ziola mutu geratu izana senarra hil zenean. Anjel Lertxundi

Setioa hasi berria zen, jendeek ez zekiten oraino zer etorriko zitzaien eta **eskuzabal** agertzeko esku ematen zioten beren buruari. Aingeru Epaltza

Eskuzabal ordaintzen zien espioitza lan hori, hain etekin ederra ematen ziona. Karlos Zabala

Aita **eskuzabal**, atsegin portatu zen, jaun handi baten antzera. Xabier Olarra

-Nahi baduzu hurrengo baterako geratuko gara... -esan zidan **eskuzabal**. Xabier Mendiguren Elizegi

«Batasunak su etena argi eta zehatz eskatzen badu, txalotzeaz gain, **eskuzabal** eta ausart jokatzeko prest dago Aralar», nabarmendu zuen Zabaletak. Berria - Euskal Herria

Eman, beraz, **eskuzabal**, ez gogoz kontra. Elizen arteko biblia

Ohoratu Jauna **eskuzabal**, ez izan zikoitz zeure uztaren lehen fruituak ematen. Elizen arteko biblia

Erromesak hain **eskuzabal** hartzeagatik. Xabier Aranburu

3 irud/hed

Erdi-erdian iturri bat zegoen, ura **eskuzabal** botaka. Felipe Juaristi

Bus-geltokiaren atzeko aldean eta trenbidearen paralelo, garai batean Austriaren bihitegi izandako eraikuntza luze erraldoiak daude, itsasoan **eskuzabal** sartzen den moila-adar baten gainean. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eskuzabala (4); **baino eskuzabalagoa** (3); **bezain eskuzabala** (3); **da eskuzabala** (6); **emaile eskuzabalak** (3); **ere eskuzabal** (7); **eskaintza eskuzabala** (3); **eskuzabal agertu** (5); **eskuzabal bat** (3); **eskuzabal eman** (4); **eskuzabal ematen** (4); **eskuzabal eta** (16); **eskuzabal izan** (3); **eskuzabal izateko** (6); **eskuzabal jokatu** (13); **eskuzabal jokatzeko** (3); **eskuzabal jokatzen** (3); **eskuzabala da** (15); **eskuzabala da eta** (3); **eskuzabala dela** (3); **eskuzabala ere** (3); **eskuzabala eta** (8); **eskuzabala izan** (29); **eskuzabala izan zen** (6); **eskuzabala izango** (4); **eskuzabala izaten** (4); **eskuzabala zara** (3); **eskuzabala zela** (3); **eskuzabala zen** (7); **eskuzabalago eta** (3); **eskuzabalak dira** (3); **eskuzabalak izan** (7); **eta eskuzabal** (14); **eta eskuzabala** (26); **eta eskuzabala izan** (5); **eta eskuzabalak** (5); **eta eskuzabalaren** (3); **eta eskuzabalena** (3); **ez da eskuzabala** (3); **ezin eskuzabalago** (3); **gizon eskuzabal** (3); **hain eskuzabal** (8); **hain eskuzabala** (5); **oso eskuzabal** (3); **oso eskuzabala** (15); **oso eskuzabala da** (3); **oso eskuzabala izan** (3); **oso eskuzabala zara** (3); **oso eskuzabalak** (4)

---

eskuzabalki *iz* eskuzabaltasunez.

Euskal Herriak **eskuzabalki** hartzen zaituztela. Berria - Euskal Herria

Horrek Iparraldean edo Nafarroan badu funtsa, ez dut dudarik, han euskarak ez baitu behar duen laguntzarik batere, eta euskararen aldekoak erkinka eta **eskuzabalki** ari baitira agintari politikoen borondatearen gainetik. Pello Salaburu

Halakoei kontseiluño bat eman behar zaie **eskuzabalki** ahanztolatik, zuhurki eta zorrozki galdetzen erakusten den eskola onaren legetik. Iñaki Segurola

Kopisten garaikideak diren idazleak naturaltasunez baliatzen dira arrasto horien abantaila begibistakoez beren lanean, eta, beren etxeko euliek **eskuzabalki** ematen dieten laguntzari muzin egin gabe. Xabier Olarra

Edu Zelaietaren saio poetikoa aski barnakorra izan zen eta bere emanaldia **eskuzabalki** kantu bihozdun batekin bururatu zuen Beñardo Goietxe kantariaren, boz ezti. Herria

---

eskuzabaltasun **1** *iz* eskuzabala denaren nolakotasuna.

Bere baitan jaso ditu, besteak beste, leialtasuna, justizia, gozotasuna, errukia, **eskuzabaltasuna**, zuhurtzia. Askoren artean

Zentzu kritikoa, **eskuzabaltasuna** eta buru-irekitasuna lagun zutela. Juan Garzia

Gizatasunezko bost kalitate aintzinatzera menturatuko naiz: herrialde zabal bati buruzko amodioa, haren geroa prestatzen laguntzeko gutizia, **eskuzabaltasuna**, kalapioa eta irriskatzeko ausartzia. Herria

Oparotasun hark ez zuen **eskuzabaltasuna** iduri, kontrakoa baizik. Monika Etxebarria

Biografoek Frantzisko gaztearen bihotz ona eta **eskuzabaltasuna** azpimarratzen dute, eta bereziki behartsuenganako sentiberatasuna. Askoren artean

Bertutearen filosofoen ustetan, kemena eta **eskuzabaltasuna** bezalako bertuteak bizitza ona izaten laguntzen duten ezaugarriak dira. Askoren artean

Onberatasuna eta **eskuzabaltasuna** uztartzen dira zuregan, Farat jauna. Patxi Zubizarreta

Besteenganako **eskuzabaltasun** hura, lanbidean zuen trebetasun berezi hura, neurosi baten emaitza? Juan Kruz Igerabide

Esku betean ematen die behartsuei, haren **eskuzabaltasunak** betiko dirau. Elizen arteko biblia

Zigorraren negutik **eskuzabaltasunaren** udaberrira. Joan Mari Irigoien

Meriendaren "kalitatea" jabearen ondasunen eta **eskuzabaltasunaren** araberakoa izaten zen. Martin Anso

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ahalmen hori, ororen gainetik, produktuak eraldatzeko gaitasunean datza, ez naturak **eskuzabaltasun** handiagoz edo txikiagoz eskaintzen duenaren ustiaketan bakarrik. Koro Navarro

Harryk joan zen hiru urtean beraren alde **eskuzabaltasun** hutsez egin izan zituen milaka gauzak kontatzeari ekinez. Oskar Arana

Bere etsaiari, bere hiltzaileari barkaturik, nire ilobak amore eman ahal izan dio bere **eskuzabaltasun** naturalari. Jon Muñoz

Semeak bere heriotzaz askapena eta bekatuen barkamena lortu dizkigu, Jainkoaren **eskuzabaltasun** agorrezinaren erakusgarri. Elizen arteko biblia

Itxuraldatua, bere senetik aterea, **eskuzabaltasun** eroaz sufritzen. Monika Etxebarria

Italiartasunaren **eskuzabaltasun** suizidatzat dute Bolzanon alemana koofiziala izatea. Anjel Lertxundi

Zorigaiztoko afera hartan guztian bazen **eskuzabaltasun** apurren bat, ernetzeko ahaleginetan. Oskar Arana

Juan Inazio Iztueta bost egun barru kalean izango da justiziaren **eskuzabaltasun** gehiegizkoari esker. Anjel Lertxundi

Likoreen eraginpeko **eskuzabaltasun**-tarteetan baino ez zioten ekiten euren arteko adiskidetasun-harremanari. Mirentxu Larrañaga

Ez naiz hainbertze **eskuzabaltasun** erakutsiren lekuko gertatu, nola izeba Milagrosek gure adiskidearekin -eta bidenabarrean, gurekin-. palestinarrek duten erresistentzia, **eskuzabaltasun** eta sakrifizio gaitasuna eta borrokarako grina. Aingeru Epaltza

2 (hitz elkartuean)

Musikagile jaioa zenez, Saforen azkentzea izeneko opera dramatikoa konposatu zuen, noiz edo noiz, garaiko moral-**eskuzabaltasunari** esker jotzen zutena, Parisen ez ezik, Frantziako hiririk handienetan, hala Lyonen nola Tolosan. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere eskuzabaltasun (3); **bere eskuzabaltasunagatik** (3); **eskuzabaltasun eta** (3); **eskuzabaltasuna eta** (7); **eskuzabaltasunak betiko** (3); **eskuzabaltasunak betiko dirau** (3); **eskuzabaltasunari esker** (12); **eta eskuzabaltasuna** (20); **eta eskuzabaltasunaren** (3); **haren eskuzabaltasuna** (4); **haren eskuzabaltasunak** (4); **haren eskuzabaltasunak betiko** (3); **maitasuna eta eskuzabaltasuna** (3); **zuen eskuzabaltasuna** (4)

---

eskuzaldatu ik **esku 18**.

eskuzapi *iz* eskuak, aurpegia eta kidekoak xukatzeko erabiltzen den ehun edo oihal zatia. ik**eskuoihal; xukadera; zapi**.

Horietaz gainera, berekin zekartzaten **eskuzapi**, pitxar, katilu, baso eta halako jendetzak beharrezko zituen beste hainbat ontzi. Askoren artean

Garbitu aurretik, **eskuzapia** prestatu lehortzeko. Jon Muñoz

Ezinezkoa zen odol hura guztia garbitzea burkoaren ondoan zeuden gazak eta **eskuzapiak** erabiliz. Ibon Uribarri

Plater ertzaren azpira bildu zuen **eskuzapia**. Anton Garikano

Mutiko baten modura garbitu zituen eskuak, **eskuzapian** igurtziz zikina. Koro Navarro

Tabernako zerbitzaria bakarrik geratu da, eta salmahaia garbitzeari ekin dio **eskuzapi** batez. Javi Cillero

Hasieran kar-kar motel bat eta gero handiagoa, gero eta ozenago, harik eta Kitok sakelatik **eskuzapia** atera eta begiak lehortu zituen arte. Anton Garikano

Eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen. Elizen arteko biblia

Eskuzapiaren muturra pitxerrean sartu eta begiak freskatu zituen ur hotzarekin. Irene Aldasoro

-Hurrengoan zeuk ipiniko didazu, e Onan? -eskatu eta **eskuzapiaz** eskua lehortu zuen. Aitor Arana

· Mirandek betaurrekoak xukatu zituen **eskuzapi** txiki batez. Javi Cillero

Patata bero irintsu batzuk, **eskuzapi** zuri batean bilduak. Irene Aldasoro

Paul D makurtu egin zen, isuritako kafea garbitzeko bere **eskuzapi** urdinarekin. Anton Garikano

Betaurrekoak kendu eta sakelako **eskuzapiarekin** garbitu behar zituen. Irene Aldasoro

· Bekokian zer ageri ote nuen egon nintzen,halaxe, zakutotik bere soinekoen aire bereko **eskuzapi** zati bat atera, mokanes deritzoten horietakoa, eta neuri eskaini zidan arte. Edorta Jimenez

Bere kapa marroi argiak **eskuzapi** lanak egiten zituen, nonbait. Anton Garikano

Julia **eskuzapi** pila batekin zihoan barrura, eta ahizparengana itzuli eta esan zuen, soilik, galderak harritu balu bezala: [...]. Irene Aldasoro

---

eskuzar *iz adkor* esku handia

Bat-batean, **eskuzar** bat atera duk zulotik: txerrikumeari belarrietatik heldu, ra! kukutu duk. Pablo Sastre

Lañuak heldu zion kopari garratz, haren **eskuzarrean** ez zen kristalik ikusten. Pablo Sastre

---

eskuzarta *iz* eskuarekin jotako zarta.

Carlos Zazpigarrenak eta bere etxean zeuzkan gomitatuek, **eskuzarta** luzea jo zuten balkoietatik. Txillardegi

Jendarteko orroak eta **eskuzartak** ez zituen lehen bezain garbi aditzen. Josu Landa

Elizarainoko bide guztian, etengabeko **eskuzartak** eskaini dizkiote donostiarrek eta gerturatutako bisitariek Don Alfonsori: [...]. Txillardegi

Kurutcharryk abantaila hastean, lehen bostak makearrari utzirik: 12-6, 16-9, baina 17 tan ados eta 19 tan, eta 24 etan, 25 etan, ainitz **eskuzartaren** pean. Herria

Gibelera egin du ere, Katoliko guztien **eskuzarten** erdian egin omen zuen aitormen honetatik. Piarres Xarriton

Ez dezaket, bada, ahantz ere aspaldiko egun eder hura non, 1528an, Salamancan, sekulako jende ikasi eta jakintsuen biltzarrean eta azkenean gaitzeko **eskuzarta** andanaren erdian eta lehen aldikotz hango irakasle guztien aitzinean, nihonek Eliza oinarrien kapituluan aipatu ondorioak finkatu bainituen orduan. Piarres Xarriton

---

eskuzartaka *(orobat **esku-zartaka**) adlag* esku zartak joaz.

Erregea agertu den tokietan, batzu **eskuzartaka**, txalo eta txalo, beste frango hixtuka eta oihuka. Herria

Emakume gazte musu-gorri morez jantziriko bat sartu zen gelan, aztoraturik **esku-zartaka** eta deiadarka: [...]. Irene Aldasoro

---

eskuzartatu, eskuzarta(tu), eskuzartatzen du *ad* eskuzartak jo, txalotu.

Donostian aldiz, itzultzean, omendu ditu beren herriak eta 15 minotaz **eskuzartatu**, hor eman duten Mozarten Requiemaren ondotik. Herria

---

eskuzatar *iz* eskuzapia. ik **eskuoihal**.

Eskertu zidan nire behar gabeko laguntza eta eskuak garbitu zituen **eskuzatar** moduko lits-mordo koloreanitz batekin. Joxe Austin Arrieta

---

eskuzkatu, eskuzka(tu), eskuzkatzen du *ad* eskuetan erabili.

Orain espainolez "mórbido" esatean, "gaitza" esan nahi alde, "irrikaz hozkatua, begizkatua, edo **eskuzkatua** izateko prestatua" esan nahi da; eta frantsesean eta italieran bihurrera berbera eman du hitzak, izan ere, ongiez poetikoan erotzeraino galdu diren hizkuntzak baitira biok. Patziku Perurena

---

eskuzko *izlag* eskuz eginikoa; eskuz erabilikoa.

Susmatzen dut kopietan itzuririko errakuntzak direla, ez baitugu Onqelosen **eskuzko** izkribua, hori interpretazio bereziren bati zor zaiola segurki esan ahal izateko. Xabier Kintana

Historiazalea zen, baina bere leinuarena idazteaz konformatu zen, goragoko asmorik gabe; ez zuen inoiz argitaratu eta gaur egun **eskuzko** zenbait kopien bidez ezagutzen dugu. Berria - Kultura

-Nire irakasle Schopenhauer-en ale bat, haren **eskuzko** oharrekin. Josu Zabaleta

Idazmahaian ezarri zituen ukondoak, pentsati, ikasgaia errepasatzen ari den eskola-ume zintzo bat irudi, gutunean finkatu zuen begirada, **eskuzko** lerro bakan haietan. Xabier Olarra

Jende ainitz ibili omen da bigarren **eskuzko** tresna feirian. Herria

Latorri beltzezko erreaktor zilindriko halamoduzko bat, **eskuzko** irabiagailu eta guzti. Juan Garzia

Eskuzko plantxekin aritzen ginen txapa handi-handi baten kontra. Arantxa Iturbe

Ehunetik gora orrialde idatzi ditu makinaz, eta **eskuzkoetan** beste bederatziehun ditu. Edorta Jimenez

Abantaila ugari ditu zutikako jarrerak -esate baterako, **eskuzko** trebetasunak garatzeko aukera ematen du-. Irene Aldasoro

Azkueren **eskuzko** liburuxkak Euskaltzaindian daude. Berria - Kultura

Gero **eskuzko** hori makinazkora kopiatu zitean, baina dokumentua sinatu zeneko eguna bere hartan utzita. Edorta Jimenez

Xapelketa hortan izaiten dira adin guzietako pilotariak, eta bi pilota mota ere, paleta goma, pilota ttipi arras zalu batekin eta aspaldiko **eskuzko** pilota. Herria

Eskuzko pilotariak Mexikanoak (Lopez eta Santamaria) Euskal Hegoaldekoak eta Iparraldekoak: [...]. Herria

Pilotek ez dute **eskuzko** partidetan adina garrantziarik, baina dena dela, bikote bakoitzak arrazoi ezberdinak izan zituzten pilotak aukeratzerako orduan. Berria - Kirola

Lau **eskuzko** piano konposizioak interpretatuko dituzte. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
da eskuzko (3); **da eskuzko pilota** (3); **du eskuzko** (3); **du eskuzko pilota** (3); **eskuzko pilota** (15); **eskuzko pilota enpresen** (13)

---

eskuzorro *(ETCn **15** agerraldi)* *iz* eskularrua, eskuarki behatzen formara egokitzen ez dena.

Oroitzen ez garen arren, umetan hatzak ere elkarri itsatsita geneuzkan eta hatzak hazi eta banandu ahala bihurtu zaizkigu **eskuzorroak** eskularru, ez baitut etxean manopla zaharrik inon atzeman. Harkaitz Cano

Amona izan behar duela jakin duenetik ez duk gelditzen puntua egiten, ito egin behar dik haurra hainbeste txano eta galtzerdi eta **eskuzorro**. Koldo Izagirre

Eskuzorroak kenduko ditut. Karlos Linazasoro

Auto-lasterketako pilotuaren itxura ematen zion, leku beretik edeki zituen **eskuzorro** beltzek areagotua. Aingeru Epaltza

Oraindik ez zituen motorrean ibiltzeko **eskuzorro** beltzak kendu. Aingeru Epaltza

Gomazko **eskuzorroak** eskuetan zituen eta mandarra, berriz, soinean. Aingeru Epaltza

Zenbaitek, tenkatuaren tenkatuaz, urraturik zeuzkaten antxume-larruzko **eskuzorroak**. Jose Morales

Baina badakit, ondo jakin ere, sedazko **eskuzorroz** tratatu behar den katutxo bat naizela ni. Josu Zabaleta

---

eskuztatu, eskuzta(tu), eskuztatzen *(orobat **eskustatu** g.er.)* du *ad* **1** eskuetan erabili.

Oroitzen dut ezen, eri sentitu ondoren bere Baionako etxerat itzultzekotan zenean, neuretzat utzi zituela jaun Marcelek dozena bat liburu, hark bere eskoletan erabiliak eta **eskuztatuak**. Joan Mari Irigoien

Autobus geltokian bertan, diru xeherik gabe nengoela ohartu nintzen, baina bost mila pezetako bat banuen, bai, eta lasai geratu nintzen billetea sakelan **eskuztatuz**. Patxi Zubizarreta

Lau hankatan jarri nintzen, eta aurrealdea ondo **eskuztatuz** segitu nuen, kontuz-kontuz. Joxean Sagaztizabal

Hala ere, judu haiek berek otzanki ikasia zuten ez soilik begiratzen, baita **eskuztatzen**, erabiltzen, irrikatzen eta metatzen ere txanponetako Zesarren irudi higuingarria. Iñaki Mendiguren

Hormako bala-zulo haiek ukitu eta **eskuztatu** nahi izan nituen. Txillardegi

-A! -esan zuen Hagridek, urduri bizarra **eskuztatuz**-. Iñaki Mendiguren

Zilarrezko kafe-ontziteriaren aurrean eserita, azukreontzia **eskuztatzen** ari zen azkazal zorrotz arrosak zituzten bere atzamar zuri perretxiko itxurakoez. Lopez de Arana

Malfoyk fardela kendu Harryri eta **eskuztatu** egin zuen. Iñaki Mendiguren

*Quousque tandem*en ale bat ikusi zuen besteen gainean, ale ondo **eskuztatua** hura ere: azal txuri-gorria letra beltzekin. Iñaki Iñurrieta

Haur sortu berritik andere edo gizon bat atera aintzin, ainitz **eskustatu** behar da. Orain espainolez "mórbido" esatean, "gaitza" esan nahi alde, "irrikaz hozkatua, begizkatua, edo **eskuzkatua** izateko prestatua" esan nahi da; eta frantsesean eta italieran bihurrera berbera eman du hitzak, izan ere, ongiez poetikoan erotzeraino galdu diren hizkuntzak baitira biok. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Eta eseri da, biztanleria lehiatsuaren joan-etorriengatik akiturik, terraza chic batean bermut edanez, poema liburu **eskuztatu** baten lehen ahapaldia irakurtzeko. Javi Cillero

---

eskuztatze *iz* eskuetan erabiltzea.

Argitaratuak nituen liburuxkak berrikustea eta, marrazkiturik neuzkan beste zenbait lan orraztatzea, argitaratzea eta, azken **eskuztatze** baten ondotik uztea. Piarres Xarriton

Paper horixkatuak dira dagoeneko, denboraren joanak eta **eskuztatze** sarriak gastatuxeak, zaharrenak behinik, baina behin eta berriz jotzen dut atzera berauek irakurtzera. Xabier Mendiguren Elizegi

---

eskuzuri[1] *iz* belar landare lekaduna, hosto konposatuak et lore zuriak dituena, aziendak elikatzeko erabiltzen diren hazi minak ematen dituena *(Lupinus albus)*

Tabernako nagusiak ekarri zituen, eta mahaian pausatu zituen, platertxo bat **eskuzurirekin** batera. Patxi Zubizarreta

Erakustoki batean hainbat plater **eskuzuri** liliaren pipitekin, eta kopak ugari. Patxi Zubizarreta

---

eskuzuri[2] *(orobat **esku-zuri**)* *izond adkor* alferrontzia.

Gu kanpoan garen bizkitartean Domingok ez dik bakarrik gaztelua gobernatuko, abokatu eta funtzionario jende **eskuzuri** horiekin. Aingeru Epaltza

Giharrak pixka bat astintzera goazak Ondarretara; merezi dutena emango zieagu faxista **esku-zuri** horiei! Inazio Mujika Iraola

Egun batzuk lehenago akolitoei esan hien **esku-zuri** esaten zitzaiela alferrontziei euskaraz. Jokin Muñoz

---

eslabiar ik **eslaviar**.

---

eslabiera ik **eslaviera**.

---

eslabista ik **eslavista**.

---

eslabo ik **eslavo**.

---

eslabofilo ik **eslavofilo**.

---

eslaboniera ik **eslavoniera**.

---

eslalom *(orobat **eslalon** g.er., **slalom** g.er. eta **slalon** g.er.) iz* eski norgehiagoka, makil bikoteak sigi-saga pasatuz jeistean datzana.

Eskiatzaile italiarrak Alberto Tomba handiaren lekukoa hartu du, eta denboraldi honetan Munduko Kopan jokatu diren lau **eslalomak** irabazi ditu. Berria - Kirola

Jon Santacana eskiatzaile donostiarra zazpigarren sailkatu zen herenegun Turingo Neguko Paralinpiar Jokoetako **eslalomean**. Berria - Kirola

Bi herrialdeok lehia bizia izan dute betidanik **eslalomean**. Berria - Kirola

Jon Santacanak **eslalomeko** proban hartuko du parte gaur. Berria - Kirola

Raich, berriz, ibilbidetik atera zen **eslalomeko** bigarren jaitsieran. Berria - Kirola

Austriako hiru eskiatzaile **eslalomeko** podiumean. Berria - Kirola

Tombak bezala, Roccak diziplina teknikoenak ditu gustuko, **eslaloma** eta **eslalom** erraldoia. Berria - Kirola

Raichek **eslalom** erraldoiko Munduko Kopa irabazi du eta Roccak **eslalomekoa**. Berria - Kirola

Snowboarda, **eslalom** paraleloa (gizonezkoak). Berria - Kirola

Giorgio Rocca Italiako izar miretsia erori egin zen **eslalom** proban. Berria - Kirola

Eski alpinoa: konbinatu nordikoko lehen **eslalom** jaitsiera (emakumezkoak). Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eslalom erraldoia (11); **eslalom erraldoia gizonezkoak** (3); **eslalom erraldoian** (11); **eslalom erraldoian eta** (3); **eta eslalom** (6); **eta eslalom erraldoia** (3); **eta eslalom erraldoian** (3)

---

eslalon ik **eslalom**.

---

eslaviar *(orobat **eslabiar**)* **1** *iz* batez ere egungo Errusia, Polonia, Serbokroazia, Bulgaria eta Txekia populatu zituzten herrietako kidea.

Beti izan da hau hiri kosmopolita, jatorri askotako jendearen biltok [...] milaka eta milaka dira kalean eta lanean ikusten diren afrikarrak, magrebtarrak, argentinarrak, karibearrak, **eslaviarrak**, inkak, filipinarrak. Xabier Mendiguren Elizegi

Eslavonia, hau da, **eslaviarren** lurraldea. Askoren artean

Bapore-konpainien aurrean atzerritarren talde batzuk zeuden: iztupazko iledun norvegiarrak; suediar aurpegi biribilak; poloniarrak; mediterranear gizontxo beltzaranak, berakatz usainekoak; **eslaviar** erraldoiak; hiru txinatar; laskar-talde bat. Lopez de Arana

Erdiak-edo Ekialdeko Europakoak, izenez asma nezakeenez, tartean lehendik zeuden bi andreak, Urszula Kawecka eta Krystina Cserna, biak ilehoriak, zurbilak, bizitasun gutxikoak, **eslaviar** peto-petoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Otomandar kristau ortodoxoak Mendebaldearen lilurapean erori zirela eta, Errusiak nolabait ere erakartzen bazituen, ez zela hura **eslaviar** zelako, ezta ortodoxoa zelako ere, baizik eta mendebaldar bihurtzeko eginkizunean aitzindari zelako. Iñaki Mendiguren

Berba erdirik ulertzen ez didaten **eslaviar** sorta. Urtzi Urrutikoetxea

2 *izlag/izond* eslaviarrena, eslaviarrei dagokiena.

Eslaviar hizkuntzek aditzaren bi aspektu bereizten dituzte erregularki. Isabel Arrigain

Lan horrek **eslaviar** mitologian gaizkiaren figuretariko bat den Vodnik uretako jainkozkoaren historia jasotzen du. Berria - Kultura

Eskandinaviarrak bakarturik zeuden erromatar kristandadetik seigarren mendea bukatu baino lehen **eslaviar** paganoak tartean sartu zirelako. Iñaki Mendiguren

Dnieper eta Neva-ren arroetako **eslaviar** barbaroen konkistatzaile izan ziren errusiar eskandinaviarrek kultura kristau ortodoxoaz egindako onarpenean. Iñaki Mendiguren

Greziar alfabetoaren **eslaviar** bertsioaren errusiar aldaera. Justinianoren erreinuaren ondoren lonbardiar, **eslaviar** eta arabiar inbasioen uholdea etorri zen laster. Iñaki Mendiguren

I. Mundu Gerlako irabazleek, nazionalitateen printzipioaren izenean, eraiki zituzten bi estatu **eslaviarrak** desegiten ziren: alde batetik Txekoslovakia, Txekia eta Eslovakia elkarretarik bereiziz, onez onean, eta beste aldetik Jugoslavia, Eslovenia, Kroazia, Bosnia, Mazedonia, Serbia eta Montenegro, hots, estatuko nazio bakoitza beregain jarriz, kostarik kosta, Kosovoren auzia hor geratzen bada ere. Piarres Xarriton

Jatorri **eslaviarra** dute, serbiar eta kroaziarrek bezala. Berria - Mundua

Balkanetako, Errumaniako, herri **eslaviarretako** eta Turkiako kultur elementuak barneratu ditu. Berria - Kultura

VI.-IX. mendeak: Tribu **eslaviarrek** Eskitiako zenbait eremu okupatu zituzten. Berria - Mundua

Familia **eslaviar** txiro bateko hiru semeen kondaira zen mutikotan gehien gustatzen zitzaiona. J.M. Olaizola "Txiliku"

Irri egiten zuten, aldi berean hiru edo lau hizkuntzatan mintzatzen ziren, musika **eslaviarra** entzuten zuten. Joxan Elosegi

Orkestrarako lanen artean Dantza **Eslaviarrak** ere ezin genitzake ahaztu. Berria - Kultura

Irribarre egiten zion amonak, begiak gozo eta jostakin, ileak mototsean bilduak, masail hezurrak gora markatuak, oso **eslaviarrak**. Joxan Elosegi

3 (hitz elkartuetan)

Rosenfeldek jatorriaren kontuari buruz Rothek zuen obsesioa aztertu eta gero, agertzen du bilaketa horrek ekarri ziola Rothi bere lanetan nabaria den judu-**eslaviar** melankolia. Matías Mujika

---

eslaviera *(orobat **eslabiera**) iz* eslaviar hizkuntzak biltzen dituen hizkuntza teorikoa.

Indoeuropar hizkuntzatik sanskritoa, greziera, **eslabiera**, talde zeltikoa eta talde italikoa sortu zirela esatea, eta hizkuntza horietako bat indoeuropar hizkuntzaren lekuan jartzea oso gauza desberdinak dira. Isabel Arrigain

Salbuespen bat edo beste badugu, hala ere: Joanes VIII. ak (872-882), adibidez, onartu baitzuen san Zirilok eta Metodiok **eslavieraz** aurkeztu zioten liturgia. Piarres Xarriton

Errusiar ez ziren herrialde kristau ortodoxoetan errusiarren aurkako sentimendu hori lehen begiratuan harrigarria gerta liteke, artean kristautasun ortodoxoa baitzen errusiar estatuan ezarritako erlijioa, eta **"eslaviera** zaharra" dialektoa, liturgi hizkuntza komuna errusiar, errumaniar, bulgariar eta serbiar eliza ortodoxoetan. Iñaki Mendiguren

---

eslavista *(corpusean **eslabista** soilik) iz* eslaviar hizkuntzak aztertzen dituen hizkuntzalaria.

Berehala eskola berri bat sortu zen, Neogramatikariena hain zuzen; horren buru guztiak Alemaniakoak izan ziren: K. Brugmann, H. Osthoff, W. Braune eta E. Sievers germanistak, Leskien **eslabista** eta abar. Isabel Arrigain

---

eslavo *(orobat **eslabo**) iz/izond* eslaviarra.

Oraindik ere gure artean **eslavoak** edo latinoak edo batek daki nongoak taldeka ibiltzen baikara, eta ez dugu astirik gure arteko harresiak jausteko.Indioen izaera, izan ere, zine **eslaboaren** modukoa da, euren isiltasuna euren hitzak baino adierazgarriagoa da. Edorta Jimenez

Europako arrazak latino, germaniar/anglo-saxoi eta **eslabotan** banatu ohi ziren. Joxe Azurmendi

- **Eslabo** nazkagarriak, ba! -esan zuen Ninik, eta listukada bat bota zuen lurrera. Josu Zabaleta

Horra non irteten den herritik eta hurbiltzen zaien nekazari bat: **eslaboa** zen, baina ongi mintzatzen zen italieraz. Josu Zabaleta

Polizia **eslabo** bat lagun zutela, lehendabizi autobusean eta gero trenez, Fiume-ra iritsi ziren. Josu Zabaleta

Hain luze itxarondako Evora hartan ere, konpainiatik hasita eta bertako marinel **eslaboetaraino**, batek baino gehiagok saldu ninduen. Xabier Montoia

---

eslavofilo *(corpusean **eslabofilo** soilik) izond* eslaboen aldekoa.

Ideia horiek eragin handia izan dute XIX. mendeko Errusian: Soloviov, Tolstoi etab., eta mugimendu **eslabofiloa**, "mendebal materialistaren" etsaia, Espainian Unamonoren antzera. Joxe Azurmendi

---

eslavoniar *iz* Kroaziako ekialdeko Eslavonia eskualdeko biztanlea.

Baina hain gaizki atera zitzaion, non Austrasiako leudeek **eslavoniarrek** garai zitzaten utzi eta beren herrialdera itzuli baitziren, Austrasiako markak barbaroen esku utzirik. Iñaki Iñurrieta

---

eslavoniera *(corpusean **eslaboniera** soilik) iz* Eslavonian mintzatzen den hizkuntza eslavoa.

Eslabieraren estudioan, linguistak **eslaboniera** edo paleoeslaboan oinarritzen ziren soil-soilik, **eslaboniera** X. mendez geroztik ezagutzen baitzen, eta besteen kasuan, berriz, lehen lekukotasunak berriagoak baitziren. Isabel Arrigain

---

esleipen *iz* **1** esleitzea; hautaketa. ik **adjudikazio**.

Mairuelegorretako proiektua erabakitzeko formula salatu du herri kolektiboak, eta aldez aurretik **esleipena** enpresa zehatz batekin hitzartuta dagoela aditzera eman du. Berria - Euskal Herria

Renfeko administrazio kontseiluak kontratu garrantzitsu honen adjudikazioa ere atzo egitea espero zen, baina, enpresatik bertatik Europa Press agentziari jakinarazi ziotenez, kontratu honen **esleipena** tren egileek eskatzen duten diru kopuru handia dela eta atzeratu da. Berria - Ekonomia

EAkoen ustez, arazoa ez da nork esleitzen dituen etxebizitzak, «**esleipena** bera zelan egiten den baino». Berria - Euskal Herria

Espainiako Sustapen Ministerioak Euskal Y-aren zortzi zatiren obren **esleipenak** berrikusteko aukera kezkaz hartu dute EAE Euskal Autonomia Erkidegoko agintariek eta politikariek. Berria - Euskal Herria

Bilborako tren saihesbidearen **esleipena** AHTarekin lotuta datorrela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Oraintxe bertan asaldura da nagusi Hamaikagarren Etorbideko burdinbidearen **esleipenaren** kontra. Lopez de Arana

Lanen **esleipenak**: Urtea amaitu aurretik Gasteiz eta Bilbao arteko beste zati batzuk esleituko dituzte. Berria - Harian

Antzinako Ekialdeko inperioetan (Egipto, Babilonia, Asiria, Persia, etab.) eta Erdi Arokoetan (Txina, India, musulman mundua, etab.), lurra enperadorearen jabetza zen, eta **esleipena** bizi bitartekoa beti. Koro Navarro

Gaztelu plazako aparkalekuaren **esleipena** ez da legezkoa. Berria - Euskal Herria

Konkurrentziazko mekanismoak ipintzea eta baliabideen **esleipenaren** funtzioa merkatuetara igaroaraztea dira ekoizpena eta berrikuntza bultzatzeko modurik seguruenak. Koro Navarro

Deskribapen hauetan guztietan ez du ezerk oinarria hartzen eraginen, aldaketen, jakinarazitako argibideen eta komunikazioen **esleipenean**. Xabier Arregi

Enkante postua bikoitza da; bi aldeetan, bulegoaren aurrean luzatzen den harrizko mahaiaren mutur batean, enkantegile batek otarreak kokatzen zituen eta sortei eta arrain ale handiei salneurriak jartzen zizkien; koadernoaren emakume idazlaria, bitartean, **esleipenaren** zain zegoen enkantegilearen gainetik, idazluma hatzetan. Karlos Zabala

Merkatu tresnek ondasunen **esleipen** efizientea lortzeko duen ahalmenarekin ere zerikusia baitu, eta argi eta garbi esan behar da. Iñaki Heras

Uztailean eginiko Lehen Hezkuntzako lanpostuetarako **esleipenetan** 157 horietatik 35 irakasleek lortu zuten. Berria - Harian

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Merkatu tresnek ondasunen **esleipen** efizientea lortzeko duen ahalmenarekin ere zerikusia baitu, eta argi eta garbi esan behar da. Iñaki Heras

Uste dugu ez dagoela benetako borondaterik, ez interesik, gizarte guneetako **esleipen** hierarkizatua generoaren arabera aldatzeko. Berria - Euskal Herria

%4ko soldata hazkuntza eta sarien **esleipen** «arbitrarioa» ekiditeko neurriak hartu direla jakinarazi du sindikatuak. Berria - Ekonomia

Alderdien legez kanpoko finantzaketa egin zuen Roussinek lehiaketa publikoen iruzurrezko **esleipen** baten truke. Berria - Mundua

Espainiako Sustapen Ministerioak 1.750 milioi euroko aurrekontuko kontratuen **esleipen** gehigarria iragarri zuen otsailaren 27an, Europako Agerkari Ofizialean, AHTren eraikuntza lan horiek aurtengo bigarren seihilabetekoan hasiko direla aurreikusten duen jakinarazpen batean. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

[Tokiko telebisten] emisioetan lehentasunezko hizkuntza euskara izateko eskatu dute eta horretarako **esleipen** prozeduran euskararen erabilera bultzatzea ezinbestekotzat jo dute. Berria - Euskal Herria

Autobidearen **esleipen** prozesuan «irregulartasunak» antzeman ditu EAJk, zifra ezberdinak eman baitituzte Diputazioaren arduradun ezberdinek eta «argitu gabeko» eragiketak egin dira. Berria - Euskal Herria

Batzarrek jarritako helegiteari erantzunez eman du epaitegiak ebazpena; **esleipen** epea zehaztea ezinbestekoa dela diote. Berria - Euskal Herria

Esleipen plana ondo aztertzeko Jaurlaritzak aste bi beharko dituela aurreratu zuen. Berria - Euskal Herria

Babes Ofizialeko Etxebizitzen **esleipen** kanpainari ekingo dio Nafarroako Gobernuak bihar. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Formula bat tautologia dela esango dugu haren aldagaien egia-**esleipen** guztientzat egiazko balioa hartzen duenean. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esleipen plan** (6

---

esleipendun *izond* esleipena eman zaiona.

Esleipendun izateko enpresa bakoitzaren baldintzak aldez aurretik ezagutu ahal izango dituzte eskatzaileek, enpresek exijitzen dutena betetzen duten edo ez jakiteko. Berria - Euskal Herria

---

esleitu, eslei(tu), esleitzen **1** du *ad* norbaiti edo zerbaiti dagokiona adierazi, zerbait norbaiti dagokiola adierazi. ik

adjudikatu; izendatu 8.

Renfek atzo **esleitu** zuen bere historiako kontratutik handiena, abiadura handiko 40 tren egiteko. Berria - Ekonomia

«PSOEk Euskal Y-aren obrak **esleitzeko** PPk abian jarri zuen lehiaketa geldiarazi nahi badu, horretarako arrazoiak dituelako, egin dezala», esan zuen atzo Josu Ortuondok. Berria - Euskal Herria

Primeran betetzen genuen haiek **esleitu** ziguten eginkizuna, eta atsegin handiz aritzen ginen, gainera. Mirentxu Larrañaga

Orihuelako (Alacant) alkate Manuel Merina (PP Alderdi Popularra) eta zinegotzi batzuk Udalaren garbiketa zerbitzua **esleitzean** irregulartasunak egin zituztela erakusten dituzten grabazioak zabaldu ditu Ser kateak. Berria - Mundua

Interes zuzenak ditu, batetik Eivissa-Sant Antoni zatia eraikitzen ari den enpresan (administrazio kontseiluan), eta, bestetik, autobia **esleitu** aurretik harrobi bat erosi zuelako, enpresa batekin erdi bana. Berria - Mundua

Errioxako Interpretazio Paleontologikoaren Igea Etxea disenatu, zuzendu eta koordinatzeko proiektua Aranzadiri **esleitu** diote. Berria - Kultura

Nondik atera zituen Fray Rogeirok **esleitu** zitzaion lan herkuleoa egiteko indarrak, horixe ez dakigu. Jon Alonso

Plazatik kanpo bizi ziren donostiarrek eskubidea omen zuten zezen jokoa zenean hara joateko; zeini bere balkoia, bere zenbakia **esleitzen** zitzaion. Iñaki Iñurrieta

Ganberatik ateratzen aditu nituen -"Gizon-jalea", "Muttur-gorri", "Ixtudiantea"...? -, baina hortik ere ezin ahots horri ez bisaiarik ez izenik -hots, izengoitirik- **esleitu**. Aingeru Epaltza

1993ko dekretua bete gabe **esleitu** dira lanpostuak. Berria - Harian

Idazki ofizial batekin jakinarazi zidaten "lanpostu iraunkorra **esleitu"** zidatela. Urtzi Urrutikoetxea

Besteek, Nunuri eta niri, leku bat **esleitu** ziguten munduan, txokotxo bat haien gogamenaren bazter batean, non lasai bizi baikintezkeen inoren eragozpenik gabe. Ander Irizar

Historia osoari esplikazio ulergarri bat ematea, gizadiaren jatorria azaldu eta amaiera bat **esleituko** diona. Iñaki Mendiguren

Onartzen da elizek, orain arte egindakoaren arabera, ez dutela ematen gai direnik hemen **esleitzen** zaien papererako. Iñaki Mendiguren

Erakunde espezializatuek egitamu jakinei **esleituriko** diru-laguntzak eskuratzen zituen. Juan Garzia

Kolakowskik eta Weltek, beste askorekin batera, jakina, eginkizun zahar bat **esleitzen** diote Erlijioaren Filosofiari, alegia azken galderez arduratzea. Askoren artean

Aristotelesek ez die existentzia independentea **esleitzen** Formei. Askoren artean

ZTG ikasketok irauli egiten dute filosofiak tradizionalki zientziari **esleitu** dion arazo-sorta. Askoren artean

Autoaren bukaerako pintaketa edo ekoiztu den autoa plantan mugitzea askotan kanpoko enpresa bati **esleitzen** zaizkion eginkizunak izaten dira. Iñaki Heras

Gauza mota bakoitzari hazteko eta biziari eusteko muga bat **esleitu** zaionez, eta bakoitzak zer dezakeen eta zer ez dezakeen natur legeek erabakita dagoenez gero, [...], orduan argi dago materia aldagaitzeko gorputza daukatela. Xabier Amuriza

Bizidun orok sentitu ahal izateko, euron lehenkiei sentimena **esleitu** behar bazaie, zer esan behar da gizateria bereziki osatzen dutenei buruz? Xabier Amuriza

Lanen esleipenak: Urtea amaitu aurretik Gasteiz eta Bilbao arteko beste zati batzuk **esleituko** dituzte. Berria - Harian

Informazioa emateko eginkizun hori begietako giharren feedback-ari ez baina garunetik ateratako seinale eferenteari behar zaio **esleitu**. Josu Zabaleta

Haren eskuko izaiten baitzen, jauregiko martxaz denaz bezainbatean, bat bederaren egunorozko lanen eta sailen banatzea eta **esleitzea**. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat esleitu (6); **bati esleitu** (4); **enpresari esleitu** (3); **esleitu behar** (3); **esleitu ditu** (3); **esleitu eta** (3); **esleitu zaizkien** (3); **esleitu zion** (3); **esleitu ziren** (3); **esleitu zituen** (5); **esleitzeko prozesua** (3); **esleitzen zaion** (3); **lanak esleitu** (3); **obrak esleitu** (5); **obrak esleitzeko** (8)

---

esleitze *iz* norbaiti edo zerbaiti dagokiona adieraztea, zerbait norbaiti dagokiola adieraztea.

Ingalaterrak eta Portugalek adibide horretan osatzen duten "mundu" horren ikuspegitik, teorian, baliabideen **esleitze** optimoa egin daiteke abantaila konparatiboetan oinarrituriko nazioarteko espezializazioari esker. Koro Navarro

Legegintza Gorputzean, zirrara hain handia izan zen, ezen zentroak eta eskuinak bakeak egin baitzituzten, ordu arte zatitu zituen **esleitze** lege zorritxarreko hura ahazturik, eta bete-beteko gehiengoz bozkatu zuten jendearen gustukoa ez zen zerga proiektua. Karlos Zabala

---

esleitzear *adlag* eskeitzeko zorian.

Diputazioak azaldu zuenez, horietako biren obrak **esleitzear** daude. Berria - Euskal Herria

---

eslip *(ETCn **9** agerraldi; orobat **slip** ETCn **35** agerraldi) iz* kulero txikia; hankatartea soilik estaltzen duten galtzontzilloak. ik **slip**; **tanga**[1]; **kulero**; **braga**; **galtzontzillo**.

Hark baino gehiago beste gauza batek eman zidan, ordea, atentzioa: **eslip** moduko bainujantzia zeraman eta ia troskorik ez zeukala zirudien. Aitor Arana

Berak niri kendu zidan **eslipa** eta nik berari, ohean etzanda geundela. Aitor Arana

---

eslobakiar ik **eslovakiar**.

---

eslobakiera ik **eslovakiera**.

---

eslobeniar ik **esloveniar**.

---

eslobeniera ik **esloveniera**.

---

eslobeniko ik **esloveniko**.

---

eslobeno ik **esloveno**.

---

eslogan **1** *iz* esaldi laburra, adierazkorra eta gogoratzen erraza, publizitatean eta propagandan erabiltzen dena.

Pankartak altxatzen zituzten "GORA GRYFFINDOR!" edo "KOPA LEHOIENTZAT!" bezalako **esloganekin**. Iñaki Mendiguren

Ez liguke egia batek bestea itzali behar, hori baita, zorigaitzez, **esloganen** arriskua. Piarres Xarriton

2 (izenondoekin)

Argi eta garbi esanda, ez direla dagoeneko baliagarri hainbat eta hainbat karikatura eta **eslogan** ezagun. Iñaki Heras

"PNV traidor", izaten da ezker abertzalearen manifestazioetan **esloganik** entzunenetakoa. Joseba Zulaika

Eslogan nagusi bat ere badu kanpainak: "berdintasuna". Joxerra Garzia

Ideia eta **eslogan** errazak dira nagusi merkatu hauetan ere, eta horien arabera gidatzen da finantza-artaldea. Iñaki Heras

Horixe bai marketing **eslogan** erresultoia. Ana Urkiza

Esloganik txinpartatsuena, pindartsuena nori bururatzen, eta horixe erabili izan dugu, nori zer esatea komeni zen kontuan hartu gabe. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eslogan eta (3); **eta eslogan** (4)

---

eslora *iz* barku baten luzera brankatik popara.

Argentinako Armadaren eskola-ontzia zen, Libertad zuen izena, zurian urre txopan, eta 103 metroko **eslora** zeukan. Koldo Izagirre

Izugarria izan zen, makinaren galapa, ontziak etzan egin behar zuela uhinek **esloratik** hartzen gintuztenean, mutila azaltzen ez, azaltzen ez, azaltzen ez. Koldo Izagirre

Mercedesek esan zuen Lituanian egin zela txapelketa urte hartan eta anaiek ez zeukatela joateko dirurik, ospitalean gastatu zutelako edo **eslora** handiko barku batean, berdin dio horrek. Unai Elorriaga

---

eslovakiar *(orobat **eslobakiar** g.er.) iz* **1** Eslovakiako hiritarra.

Suaira herrian, Poloniaren agindupean zeuden bost soldadu hil ziren, minak indargabetzen ari zirelarik: bi poloniar, bi **eslovakiar** eta letoniar bat. Berria - Mundua

Esan zidanez, hungariar eta txekiarrez, eta, noski, judu eta alemanez gain, **eslovakiarrekin**, poloniarrekin, ukrainarrekin eta, beharrezkoa bazen, errusiarrekin ere mintzatzeko gai zen. Urtzi Urrutikoetxea

Eslovakiak jokatzen du, eta **eslovakiarrak** hementxe daude. Edorta Jimenez

Bainan Europanoak haren alde dira agertu eta behar diren kontseiluak dituzte eman eta gauzak hitzeman, haren alde zezaten bozka **eslobakiarrek**. Herria

2 *izlag/izond* Eslovakiakoa, Eslovakiari dagokiona.

Aurtengo ekitadian Jan Ulicianski **eslovakiar** idazleak idatzi du testua (Liburuen patua izarretan idatzirik dago, Juan Ramon Azaolak euskarara egindako itzulpenean) eta Peter Cisarik **eslovakiar** ilustratzaileak ilustrazioa.1968ko urtarrilean Dubcek **eslovakiarrak** hainbat erreforma onartu zituen Txekoslovakian. Berria - Kultura

Deabru Beltze-k (Toursekoen ezizena) 8 jokalari **eslovakiar** dituzte, eta aipagarrienak Simko eta Sopko. Berria - Kirola

Josef Pezinok idazle **eslovakiarrak** ez zituen narrazio laburrak besterik idatzi berrogeita zazpi urte bete zituen arte. Iban Zaldua

---

eslovakiera *(orobat **eslobakiar**) iz* Eslovakiako hizkuntza.

Euren artean, edo letoniarrekin, juduen hizkuntza zerabilten, baina bazekizkiten alemana, **eslovakiera** eta batek daki zer gehiago. Urtzi Urrutikoetxea

Ijitoak gainontzekoen bizitza publikotik baztertuta daudenez, umeek ez dute **eslovakiera** ongi menperatzen eta gutxituentzako eskoletan ikasten dute askok. Berria - Mundua

1995: **Eslovakiera** ez ziren beste hizkuntzak ofizialki erabiltzeko eskubidea murriztu zuen Gobernuak. Berria - Mundua

---

esloveniar *(orobat **eslobeniar** g.er.) iz* **1** Esloveniako hiritarra.

Gavenda **esloveniarrarentzat** izan zen zilarra eta Meeusen belgikarrarentzat brontzea. Berria - Kirola

Askatasuna, segurtasuna, merkatu aske eta handia, kultura zabalagoa eta gazteentzat ikasteko aukerak» ekarriko dituela nabarmendu dute eta **esloveniar** guztientzat ona izatea espero dute, ez bakarrik gazteentzat. Berria - Mundua

Esloveniar asko bizi da auzootan. Anjel Lertxundi

Ez ginen banatzaile bakarrak **esloveniarrak** eta ni. Edorta Jimenez

Faxismoaren garaian, Italian bizi ziren **esloveniarrei** eskubide asko murriztu zizkieten: izen-abizenak aldatu behar izan zituzten, eskolak eta gune ekonomikoak itxi zituzten, eslovenieraz ezkutuan hitz egin behar zen. Berria - Euskal Herria

Esloveniarrek lau partida irabazi dituzte, bat berdindu (Hungaria) eta bakarra galdu (Alemania). Berria - Kirola

Esloveniarrek haxixa daukate; georgiarrek marihuana. Edorta Jimenez

Erasoan ez ezik, **esloveniarren** defentsa gogorrak ez zuen zirrikiturik uzten. Berria - Kirola

2 *izlag/izond* Esloveniakoa, Esloveniari dagokiona.

Aldian-aldian, Marko Kravos poeta **esloveniarra** agertzen da tertuliotara. Anjel Lertxundi

Zoran Lubej pibote **esloveniarra**. Berria - Kirola

Zenbat hizkuntz komunitate daude Italiako **esloveniar** eremuan? Berria - Euskal Herria

Esloveniar jatorrikoak mordoxka dira, hamabi-hamalau inguru. Berria - Euskal Herria

Autobusak berrogeita hamar metro egin ditu eta polizia **esloveniar** bat igo da aurreko poliziaren zeregin bera. Anjel Lertxundi

-Seguru ez zela frantsesek askatu dituzten hartz **esloveniar** horietarik? Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
esloveniar bat (4); **esloveniar bat igo** (4); **esloveniar eremuan** (3); **esloveniarra eta** (3); **eta esloveniarren** (3); **polizia esloveniar** (4); **polizia esloveniar bat** (4)

---

esloveniera *(orobat **eslobeniera** g.er.) iz* Esloveniako hizkuntza.

Aurrerantzean **esloveniera** edo maltera ofizialak dira Europako Batasunean (EB), bi herrialde horiek estatuak direlako. Berria - Euskal Herria

Italiarrek berehala esango dizute, beren eskuzabaltasun demokratikoa goratze aldera, esloveniarrak italiarrak bezain bertakoak direla Triesten; **eslovenierak** italieraren eskubide berak dituela, koofiziala dela. Anjel Lertxundi

Italiartasunaren eskuzabaltasun suizidatzat dute Bolzanon alemana koofiziala izatea ere, edo Triesten **esloveniera**. Anjel Lertxundi

Primorski Dnevnik Eslovenia eta Italiako mugan dauden Trieste, Gorica eta Udine herrialde italiarretan **eslovenieraz** argitaratzen den egunkaria da. Berria - Euskal Herria

Bere testuetako batzuk beste hizkuntza batzuetara itzuli dituzte, hala nola, ingelesera, **eslovenierara**, katalanera eta galegora. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta esloveniera (3)

esloveniko *(corpusean **eslobeniko** soilik) izond* Esloveniakoa, Esloveniari dagokiona.

BAUDOUIN DE COURTENAY-k erabili zuen lehenengo aldiz fonema hitza esanahi horretatik hurbil, 1881eko hizkuntza **eslobenikoen** gramatikan. Lourdes Oñederra

esloveno *(corpusean **eslobeno** soilik) izond/iz* esloveniarra.

Aldian-aldian, Marko Kravos poeta **eslobenoa** agertzen da tertuliotara. Berria - Kultura

Goiz aldera, esan zien **eslobenoak** : [...]. Josu Zabaleta

esmaltatu *izond* esmaltez estalia.

Urteberri egunean eskumuturreko **esmaltatu** bat eman zion opari. Oskar Arana

Ez dakit nola prestatzen den azido pirubikoa gaur egun; guk, orduan, azido sulfurikoa eta sosa urturik eltze **esmaltatu** batean, bisulfatoa lortzen genuen. Juan Garzia

Lan-prozedura sinplea zen: neska batek zenbait ezko eta gantz urtarazten zituen lapiko **esmaltatu** batean, perfume pixka bat eta margogai pixka bat gehitzen zion, eta gero molde ñimiño batera irazten zuen nahastea. Juan Garzia

Haren gainean, azpil **esmaltatu** bat eta zunda gorri bat uretan. Joseba Urteaga

Hormetako pintura **esmaltatuak** are indartsuago islatzen du argia. Iñaki Iñurrieta

Portzelana **esmaltatuzko** kapsula bat aurkitu nuen. Juan Garzia

esmalte **1** *iz* berniz beiratsua, beroturik gauzakiei itsasten zaiena.

Autoek harrotutako hautsari eta kristal, **esmalte** eta nikelen gainean sortutako isla angeluarrei beha zegoen. Lopez de Arana

Ez hortzen azaleko arrastorik, ez **esmalteko** itzalik, ez ertzetako akatsik, irribarre pasakor hartan ezertxo ez zen izan nire oroimenean irarrita geratu ez zenik. Koro Navarro

Aralarko erretaula XII. mendeko urregintza europarraren maisulana da, **esmaltez** osatutako frontal ikusgarria.Behatxuloa egon beharko lukeen lekuan **esmaltezko** Kristo bat dago, koloretsuegia aukeran. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Baztertuak genituen ordurako hainbat tona **esmalte** beltz. Juan Garzia

Sutegi ekonomikoaren txapa ilunaren gainean bi eltze eta kafetera **esmalte** zurikoa. Pello Lizarralde

Aurpegi beltz distiratsu bat, **esmalte** zuri koloreko begiak, **esmalte** zuri koloreko hortzak. Lopez de Arana

Begia tinta orban beltz bat bezala zen **esmalte** zurian. Josu Zabaleta

Kristalezko atearen erdian, **esmalte** zuriz idatzitako hitz batzuk: emile rigaud, gozoki hautatuak. Lopez de Arana

Esmalte urdinean landutako medailoi bat. Joxan Elosegi

Azazkalak **esmalte** gorriz. Anjel Lertxundi

"Nire" beirontziteria **esmalte** urdinezko puntutxo batez markaturik zegoen, beste armairuetakoarekin nahas ez nezan. Juan Garzia

Esmalte fin eta leuna. Ander Irizar

Esmalte gorrizko platerak eta koilara mailatuak. Urtzi Urrutikoetxea

Esmalte kaskatuzko irazki bat buruan. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Mesanotxean, azazkalak margotzeko **esmalte** -poteak zeuden ilaran. Jasone Osoro

Logelak **esmalte** -kolore grisaxka eta arrosa-kolore zaharkitua ageri zituen. Mirentxu Larrañaga

· Kobre- **esmaltezko** antoisin bat ziapearentzat. Anton Garikano

4 esmaltez estalitako bitxia edo kidekoa.

Aralarko erretaula XII. mendeko urregintza europarraren maisulana da, **esmaltez** osatutako frontal ikusgarria. Berria - Kultura

Erdi Aroa garai iluna izan zen, gutxi ezagutua da oraindik, eta harrigarria da erakusketa honetara ekarri diren kode, kutxa, **esmalte** , bitxi eta kapitelen luxu eta distira. Berria - Kultura

Ikerlari gehienek XII. edo XIII. mendean egina zela zioten, eta Marie Madeleine Gauthier ikerlariaren lanek XII. mendean finkatu zuten **esmaltearen** datatzea. Berria - Kultura

5 hortzak estaltzen dituen gai zuri eta gogorra.

Egia da grisak ditudala, margulak, umetan izan nuen gaixotasun bat zela medio botika gehiegi hartu, eta, antibiotikoak batez ere, **esmaltea** jan zidalako. Ramon Saizarbitoria

esmalteztatu, esmaltezta(tu), esmalteztatzen **1** du *ad* esmaltez estali.

Bazirudien inguruan zuen guztia gogortzen eta **esmalteztatzen** ari zela. Lopez de Arana

Ellenek kapela kendu zuen eta dardarka pausatu zen **esmalteztutako** aulki txiki baten gainean. Lopez de Arana

Zortzi gris lana beha daiteke Guggenheimen, beira **esmalteztatutako** zortzi panel. Berria - Kultura

Zuriz **esmalteztatutako** 503 zenbakia zeukan ate txokolate-koloreko baten aurrean zegoela, traskoak etorri zitzaizkion gogora. Lopez de Arana

Ahalegin guztiak egin arren zerbaitetan jarduteko, sabaiko zuri garbiarekin edo lanpararen pantaila **esmalteztatuarekin** nire burutazioetan murgiltzeko, ezinbestean konturatzen naiz zelan makurtzen den Piettka kazola batekin eta bere su txiki elektrikoarekin. Urtzi Urrutikoetxea

Eguzkia ordurako berotzen hasia zen eta espaloietan, kristaletan eta kartel **esmalteztatu** hautseztatuetan irakiten zuen. Lopez de Arana

2 irud/hed

Maiatzak **esmalteztatu** , urreztatu eta zilarreztatutako kaleetan zehar, Ellenek, egonezinik, gero eta hurbilago sumatzen zuen usain hura; bafada trinko geldietan zabaltzen zen kirats hura, zirimola uzkurtuetan, estoldek jariatzen duten hatsa iduri. Lopez de Arana

esmeralda **1** *iz* kolore berdeko harri bitxia, beriloaren aldaera dena.

-Esmeralda harri preziatu ederra da. Joan Mari Irigoien

Emakumeak harribitxi garestia zeramaan eri horretako eraztunean, **esmeralda** bat. Aingeru Epaltza

Esmeraldak duen edertasuna berezkoa du, eta edertasun hori ez da izenaren ez poetak kanta diezaiokeenaren fruitu. Joan Mari Irigoien

Esmeralda, berez kolore berde bizia daukana, txikitzean hauts zuri bilakatzen dela, eta horrek frogatzen duela akzidente hori osotasunari dagokiola eta ez haren ataltxo bakoitzari. Xabier Kintana

Esmeralda bila joan zen harribitxi-bilatzailea. Xabier Aranburu

Asschertarrak **esmeraldak** lantzen aritu ziren diamanteekin hasi aurretik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zolua **esmeraldaz**, nakarrez eta marmolez egina zen. Elizen arteko biblia

Hiriko harresiaren oinarriak era guztietako harribitxiz zeuden apainduak: lehenengo oinarria jaspez, bigarrena zafiroz, hirugarrena kaltzedoniaz, laugarrena **esmeraldaz**. Elizen arteko biblia

Esmeraldaren merkataritza hemengo negozioetako bat da, kafearekin, petrolioarekin eta kokainarekin. Joseba Sarrionandia

-Alkimia-laborategi batean bazeunde honako hauxe litzateke, beharbada, **Esmeraldaren** Taula ulertzeko modurik egokiena agertzeko garaia. Xabier Aranburu

- **Esmeraldaren** Taulak dioena ulertu beharra al daukat? -galdetu zuen mutilak. Xabier Aranburu

Denver albait gehien egoten zen **esmeraldazko** bere itxituran. Anton Garikano

Elkarren segidan igarotzen ziren gurdi gorri haiek guztiak, suzko gorriz, zilarrezko zuriz, **esmeraldazko** berdez. Josu Zabaleta

Hainbeste firuzeh, Elburzeko meategi entzutetsuetatik atereak, hainbeste lepoko, kornalinez, agatez, **esmeraldez**, opaloez, zafiroez bete-beteak. Karlos Zabala

Halako maitale sekretu bat izatea, aurrena **esmeralda** eta rubiekiko eraztuna eta ondoren Picassoren zera hura erregalatu zizkiona. Xabier Mendiguren Elizegi

Turkesatik zafirorainoko urdinaren ñabardura guztiak dauzka zeruak, eta badiak berdearen ñabardura guztiak, **esmeraldatik** krisoprasaraino. Koldo Izagirre

Esmeralda eta altzairua bat eginik zeuden haren begi handi zoragarrietan. Gotzon Garate

Kolonbiako giza eskubideen aldeko taldeen txosten batean esaten denez, «talde paramilitarrak antolatu eta finantzatzean narkotrafiko, **esmeralden** negozio eta lurjabe handietako sektoreen esku-hartzea garrantzitsua» da. Berria - Mundua

2 (izenondoekin)

Isiltasunak inguraturik zegoela jabetu zen mutila basamortua, haizea eta eguzkia ere Esku hark idatzitako seinaleen bila zebiltzala, norbera bere bidea jarraitzen ahalegintzen zirela, eta **esmeralda** sinple batean idatzitakoa ulertzen. Xabier Aranburu

Alkimiako testurik garrantzitsuenak lerro bakan batzuk baino ez zituela, eta **esmeralda** arrunt batean zegoela idatzia. Xabier Aranburu

Han elkarri loturiko bi suge zeuden harrian irarrita, begietan **esmeralda** handi distiratsuekin. Iñaki Mendiguren

Printzeari gustatzen zitzaion, bada, bere arrotzei tabakontzi horiek, urre pisuzkoak, marfilez eta **esmeralda** txikiz inkrustatuak, erregalatzea. Matías Múgica

Lepoko ikusgarri bat, **esmeralda** are ikusgarriago bat zuena. Joan Mari Irigoien

Munduko **esmeraldarik** ederrena. Xabier Aranburu

Argi berdeko **esmeralda** handiak urrean kokatzen dira Bere beso **esmeralda** zeharrargiz zamatuez inguratzen zituen ardo apartsuz beteriko kraterak. Xabier Amuriza

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Brasilgo emakume ederrek hatzetan eraman ohi zituzten **esmeralda** harriak, Geraisen esklabuek bizi trukean lurrari kendutakoak. Felipe Juaristi

-Zer duzu, postariaren seme, gerrian **esmeralda**-meategia duzun mutil horrek? -galdegin zion Justinak hirugarren aldiz mutilari. Felipe Juaristi

Eztarria garbitu zuen, eta **esmeralda**-begi haiek klisk egin zutela iruditu zitzaion. Iñaki Mendiguren

Itsaso bare **esmeralda**-kolorearen aurrean bihotz barrenak lasaiturik **Esmeralda**-koloreko kapa berdea zeraman. Felipe Juaristi

Harryk paketea askatu eta eskuz egindako jertse bat aurkitu zuen, **esmeralda**-kolorekoa. Iñaki Mendiguren

Hogeita hamar, hamar bilkari Brasilgo tabako, eta **esmeralda**-zakuto batzuk eskaini zizkioten. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Itsasoa oso urdin ageri zen badia barruan, baina ertz aldera berdetuz zihoan, argituz, esmeraldatuz, eta berde-**esmeralda** argi hartan algen mantxa beltza ageri zen zabal. Iñaki Iñurrieta

5 (izenondo gisa)

Berak etxe **esmeraldan** zabaltzen zuen koloniaren antzeko usaina. Anton Garikano

Helbidea tinta **esmeralda** berdez idatzia zegoen. Iñaki Mendiguren

Bere zainketa hartan hainbeste saiatzen zenez, ahaztu egiten zitzaion jatea edo itxitura **esmeralda** bisitatzea. Anton Garikano

Argi **esmeralda** batean. Anton Garikano

Berriz ere burua urperatu zidaten, ur berde **esmeralda** haietara. Jon Maia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berde esmeralda (4); **esmeralda bat** (3); **esmeralda eta** (4); **esmeralda koloreko** (7); **esmeralda kolorekoak** (3); **esmeraldak eta** (3); **esmeraldaren taula** (4); **esmeraldaren taulak** (4); **eta esmeralda** (12); **eta esmeralda koloreko** (3)

---

esmeraldatu, esmeralda(tu), esmeraldatzen da/du *ad* esmeralda kolorea hartu.

Itsasoa oso urdin ageri zen badia barruan, baina ertz aldera berdetuz zihoan, argituz, **esmeraldatuz**, eta berde-esmeralda argi hartan algen mantxa beltza ageri zen zabal. Iñaki Iñurrieta

---

esmeratu *izond* saiatua.

Hara non, Antonio Soberanoaren ekintza bakarrean, hiru mirakulu zoragarri gertatu ziren, hiru aldiz bertutean **esmeratua** izan baitzen hirutasun bakarra, hiru aldiz mirakulosoa obretan izan baitzen gorengo miresgarritasuna. Jon Alonso

---

esmeril *iz* batez ere korindoiz osaturiko harri gogorra, zeinaren hautsa leungarri gisa erabiltzen baita.

Sutegiko **esmerila** kendu barik ibilten zan soinu joten bere. Xabier Amuriza

---

esmerilatu *izond* esmerilez leundua, esmerilez igurtzia.

Natxok ederki ikusi du neskaren soineko gorriaren errainua ateko kristal **esmerilatuaz** bestaldean. Patxi Iturritegi

Euria hasi du: kristal **esmerilatuetan** jotzen du leun. Monika Etxebarria

Bi leihoetako eta ateko kristalak beira **esmerilatuzkoak** dira. Monika Etxebarria

Bekokia ilundu zuen, urre-koloreko kartela beira **esmerilatuekiko** atean ikustean. Lopez de Arana

---

esmoildu, esmoil(du), esmoiltzen du *ad* alferrik galdu.

Ez da ez "Guerre des Etoiles"-ez bertze sistima bihirik gu gerizatzen ahal gaituenik itsas untzi batean, aireko batean edo berdin alokatutako beribil batean ibiltzen ahal den bonba atomiko batetarik, zonbait miliar xahuturik ere (erran nezake **esmoildurik** ere) hortarako. Herria

esmoilkeria *iz* axolakabekeria.

Ezin ahantzia dut hor eta horko egunguzietakoan nahasten diren lazdura eta trufatzeen artetik, gertatu nintzala buruz buru Aita Jean-Gabriel Hondet abadearekin eta Aita Grégoire Joannatey-ekin, Belokekoak, eta bertze anitz apezekin, kuraiez eta zaletasunez beteak gure **esmoilkeriaren** zolan. Michel Oronoz

---

esmokin *(orobat **smoking**) iz* etiketazko jaka, pieza bateko solapak, eskuarki zetazkoak, dituena.

Esmokina eta farfailazko alkandora zituen soinean. Xabier Olarra

Esmokin bat zeraman, ongi baino hobeki ematen ziona. Fernando Rey

Etxezaina, **esmokin** beltza soinean, irmo eta tente dago, atzealdean, zerbitzu-mahaiaren ondoan. Xabier Olarra

Mediku ponpoxo batzuk iritsi ziren, **esmokin** beltza eta txaleko zuria soinean, beren patrika-erlojua eta guzti. Xabier Olarra

Saloia jendez gainezka zegoen eta gizon gehien-gehienak **esmokinez** jantzita zihoazen. Fernando Rey

Egongelako ate aurretik igaro zenean, Harryk osaba Vernon eta Dudley ikusi zituen **esmokinez** eta lepoko tximeletaz dotore-dotore jantzita. Iñaki Mendiguren

---

esmokindun *izlag/izond* esmokinez jantzia.

Areto barruan bi pauso eman orduko emakumeak **esmokindun** gizonarengana itzuli omen ziren, azazkalak margotzen ari zena barne. Joxean Agirre

Ez zegoen beltz **esmokindunik** biolina jotzen orkestra sinfonikoetan, ez zuten hautatzen beltzik Senaturako, ez zegoen beltzik enpresetako zuzendaritzetan. Berria - Kultura

---

esmuglatu, esmugla(tu), esmuglatzen du *ad* kontrabandoz edo ezkutuan pasatu.

Oso ondo nagok gobernari berriekikoan, ze, gogoan izango duk zelan **esmuglatu** nituen iraultzaile bi, eta hori dela eta gau bi "gerizpetan" igaro behar izan nituen. Edorta Jimenez

Liburu horrek azken orrialdeetan dakarren bibliografian Norberto Fuentesek aipaturik utzi ditu, hotz eta motz, Juan Duñabeitiak Rolando Cubela eta beste iraultzaile bat **esmuglatu** zituen urte hartako aipagarrienak. Edorta Jimenez

---

esmuglatze *iz* kontrabandoz edo ezkutuan pasatzea.

Poliziak ere **esmuglatze** horren susmoa izan bide zuen, egun bitan gerizpetan izan baitzuten.gel Edorta Jimenez

---

esna *(orobat **esnai** g.er.) adlag* lotan egon gabe. ik **itzarrik**.

Handik aurrera, tarte laburragoetan ibili nintzen era hartan: lo eta **esna**, **esna** eta lo. Joan Mari Irigoien

Lo, **esna**; besteak bezala, besteak ez bezala. Anton Garikano

Ohean geratzen naiz, neuri galdezka, hi zertan habil, ez lo ez **esna**. Pako Aristi

Gau oso bat **esna** egon ziren, orain dauden modutsuan, esan nahi eta ezinean. Jokin Muñoz

Ohean gelditu zen, **esna**. Pako Aristi

Zergatik ez zenigun hori dena atzo esan, **esna** geundenean? Iñaki Mendiguren

Oraindik **esna** al hago? -xuxurlatu zuen. Lopez de Arana

-Aizan, **esna** al haiz? Ibon Uribarri

Ezagutzen ez genituen atsegin erogarrien zantzuek **esna** ere amets eragiten zigutela. Txillardegi

Emaztea berehala lokartu zen, baina senarra **esna** geratu zen, dena buruan jirabiraka zuela. Iñaki Mendiguren

Gau osoan ondoan gelditu zitzaion laguna, sukarrez dagoenak bezalaxe egiten baitzuen hark dar-dar; **esna** igaro zuten biek gau osoa. Askoren artean

Iritsi berritan, gogoratu du mutilak, gau asko pasatu zituen **esna**, zibilen beldurrez. Jokin Muñoz

Eta zu, nolatan harrapatu zaitugu **esna**, Itxaso? Pako Aristi

Beren semeak edukiko zituztela **esna** gauez zelatan egon zitezen. Pello Lizarralde

Gauean **esna** ematen zituen orduetan behin eta berriro entzun zituen emakume haren hitzak. Iñaki Mendiguren

Gauak **esna** ematen ditu, bere ama eder eta itsua, eta bere amantea [...] behin eta berriro gogoan erabiliz. Pablo Sastre

Azkenean, hainbeste egun **esna** eman ondoren, loak hartu zaitu. Rafa Egiguren

Baina Harryk, oso **esna** sentitzen baitzen, esan zion berehala: [...]. Iñaki Mendiguren

Hik zera esnaraziko duk printzesa, heure buruari **esna** eusteko gauza ere ez haiz-eta. Felipe Juaristi

Gero, **esna** irauteko, ezkutalekutik kanpora joan eta begira egon zen inguruan. Agustin Otsoa

Eta hara, bere zorigaiztoko ohe bakartian etzanik zegoela, **esna** eta intzirika, Frantziskoren izena esan eta esan, gizon bat agertu zitzaion. Askoren artean

Halako egonezin batek **esna** iraunarazten zuen Mikel Strogoff. Karlos Zabala

Isilik eta **esna**, Hankapalo noiz etxeratuko. Xabier Mendiguren Elizegi

Inoiz ez neukan jakiterik ametsetan edo **esna** nengoen. Pello Lizarralde

Azken aldian, ametsetan nahiz **esna**, jardina gurutzatzen ikusten diat berriro Krisztina, lirain eta lerden, bere kapela florentziar hegal-zabala buruan. Xabier Olarra

Begiak itxirik baina erdi **esna** egindako lo-suma horietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Erdi **esna** erdi lo nagoela etortzen zaizkit ideiak. Berria - Kultura

Sukarra eta nekea elkartzen direneko erdi **esna** erdi ametsezko lo horretan nahastuta geratu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Sartu, erabat **esna** gaude, hontzak bezala. Lopez de Arana

Zentzurik ez begiak itxita jarraitzeak, **esna** bainengoen zeharo. Joxe Austin Arrieta

Ohean jarraitu nuen, **esna**, alferrik zela erabaki nuen arte. Koro Navarro

Woodek bakarrik ematen zuen benetan **esna**. Iñaki Mendiguren

2 irud/hed

Begiak itxirik baina erdi **esna** egindako lo-suma horietan, **Esna** zeuzkan pentsamenduak. Xabier Mendiguren Elizegi

Zentzumen guztiak **esna**, burua atera nuen uretatik, begiak zabal-zabalik. Juan Kruz Igerabide

3 ***esna-esna*** *adlag* erabat esna.

Loak noizik behinka hartu zuen bakarrik, eta tarte labur horietan ere haren burua **esna-esna** egon zen. Karlos Zabala

Loroa, aldiz, **esna-esna** zegoen, harrizko sagu bat bezain isilik, baina andereak apaizari galdetu zionean zenbat azukre koskor nahi zituen kafearekin, loroak ordura arteko isiltasuna hautsi eta ozenki esan zuen. Xabier Paya

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina esna (5); **edo esna** (5); **erabat esna** (9); **erdi esna** (8); **ere esna** (4); **esna al** (9); **esna al zaude** (4); **esna dagoela** (3); **esna egon** (16); **esna egon behar** (3); **esna egon zen** (4); **esna ematen** (4); **esna ere** (4); **esna esna** (3); **esna eta** (16); **esna eta erne** (7); **esna ez** (5); **esna geratu** (3); **esna hadi** (11); **esna igaro** (3); **esna irauteko** (3); **esna nago** (3); **esna nengoela** (3); **esna nengoen** (4); **esna ote** (4); **esna ote zegoen** (3); **esna zaitez** (22); **esna zaitezte** (5); **esna zaude** (3); **esna zegoela** (10); **esna zegoen** (14); **esna zegoen eta** (3); **eta esna** (15); **gaua esna** (3); **guztiz esna** (4); **harry esna** (3); **orain esna** (3); **oraindik esna** (6)

---

esnaaldi ik **esnaldi**.

---

esnabol

1 ***sagar esnabol*** sagar mota baten izena.

Gaur deblauki aitor dezadan, Labaka baserriaren ondoko **sagar esnabolak** hartzera joaten ginen sarri, eta piku berdeak dozenaka lapurtzera ez gutxitan. Txillardegi

---

esnadun ik **esnedun**.

---

esnaera **1** *iz* esnatzea.

Ametsik eta **esnaerarik** gabeko loan etzatea. Iñaki Segurola

Siddhartaren **esnaera** zen. Pako Aristi

Esnatu egin duzu, eta bere ama bezain **esnaera** txarrekoa da. Arantxa Iturbe

Gu internoon **esnaera** tristea zen, Ikastetxeko logela goibel eta glazial haietan. Joseba Sarrionandia

Haren nerbioetako ondoeza Cayenneko ameskeria luzeen **esnaera** besterik ez zen. Karlos Zabala

Bitartean, errefau beltz mardulek, doluzko oihalen gainean ipinita, zulo ilunpetsu batzuk uzten zituzten han-hemenka, bozkariozko **esnaera** gartsu haren erdian. Karlos Zabala

2 irud/hed

Euskal musika nire bizitzaren zati bat zen, nire **esnaeraren** erreferente bat, sentimenduak adierazten lagundu zidana, herri baten paisaiak erakutsi zizkidana. Pako Aristi

---

esnagailu *iz* esnatzeko gailua.

Esnagailu bat atera du estutxetik, eta eskumuturreko erlojua kontsultatu ondoren orratzak mugitu eta korda eman dio. Pello Lizarralde

Esnagailuaren soinuak logela bete du istant batean. Pello Lizarralde

Zortzi orduko tren-bidaia zuen beste batek, berriz, trenera sartu orduko **esnagailua** martxan jarri, eta lo lasai egin zuen, harik eta, jaitsi beharreko geltokirako bost minutu falta zirela, **esnagailuak** esnatu zuen arte. Joxerra Garzia

Sukaldean kanilaren tanta-jarioa eta metalezko **esnagailuaren** tiki-taka lehorra aldizkatzen edo batzen dira. Pello Lizarralde

Badirudi Arrazoi Maiuskuluaren ustezko jabe bakarrek osteguna dutela lan-egun gorri, eta atzo goizean, berriro ere, madarikatu egin nuen irrati-**esnagailua** erosi izana. Joxerra Garzia

---

esnai ik **esna**.

---

esnaki ik **esneki**.

---

esnaldi *(orobat **esna aldi**) iz* esna ematen den denbora.

Zaila zen egoera horri izena ematea, hain bestelakoa baitzen **esnaldiko** egoera erne arretatsuaren aldean. Xabier Olarra

Lo egiteko ordu eta **esna-aldiko** orduei buruzko ikerketa. Jon Alonso

Asmakizuna eta ipuina eta gezurra dela dena, eta, **esna aldian** , edo erdi lotan hobe noski, esandako ametsak. Patxi Ezkiaga

---

esnarazi, esnaraz, esnarazten **1** du *ad* esnatzera behartu.

Lo zegoen eta ez Santxok zuen ezer ere erantzun; eta ez zen esnatuko ere, Don Kijotek lantza-ondoarekin **esnarazi** ez balu. Patxi Ezkiaga

Sei metro koadroko kaiola batean giltzapetuta dago, ez du egunik ez gaurik nabaritzen, ordu erdi oro **esnarazten** dute, argindar ziztadak ematen dizkion uhal bat ezarri diote gerrian. Berria - Harian

Bere izaratik askatuta, hotzikara batek **esnarazi** eta argia piztu zuen Evak. Harkaitz Cano

Sarrailaren hots zakarrak **esnarazi** zaitu. Rafa Egiguren

Ulises **esnarazi** zuen, Nausikaa ikus zezan. Juan Kruz Igerabide

Ikasleek, Jesusengana hurbildurik, **esnarazi** egin zuten, esanez: - Maisu, Maisu! Galzorian gaude! Elizen arteko biblia

Jakizu alargun naizela eta lehiazale porrokatua, eta ez dudala etsiko harik eta lo dagoen printzea **esnarazi** eta nire herrira eraman arte. Felipe Juaristi

Irudi gordin hura, **esnarazi** behar ninduena, ez zen iritsi, eta ametsaren barruan gelditu nintzen, kobazulo atseginean. Bernardo Atxaga

Gizon bat iratzarriko bazenu, gizonetarik ergelena balitz ere, lo datzan bat **esnarazten** den bezala, hau galdetuz: Jakin nahi al zenuke zertzuk diren zeruko esferak, zenbat eta nolakoak diren eta zer daukaten? Xabier Kintana

Eltzekada bat ur bota zioten Joanesi **esnarazteko** . Felipe Juaristi

Poliki itxi zuen maletaren kremailera, gelan beste norbait **esnarazteko** beldurrez balego bezala. Harkaitz Cano

Karranka hotsa ateratzen ditek gurpilek, leihoei dardara eraginez, jendea **esnaraziz** . Juan Garzia

Bere ahuleziatik begiratu nahi dute, amesgaiztotik **esnarazi** . Oskar Arana

Hume izan zen Kant loaldi dogmatikotik **esnarazi** bide zuena. Askoren artean

2 irud/hed

Horrek guztiak Boliviako herritarrak **esnarazi** zituen, krisia eragin zuen herrialdean eta horri esker aldaketa historikoa lortu dugu. Berria - Harian

Zuzeneko musika egiteko eta Bilboko gauak **esnarazteko** gogoz itzuli da Laseda hirukote bilbotarra. Eremu esterileko zerbaitek, debekuak, sindromea **esnarazi** zion; bat-bateko zartadak ematen edo keinadak egiten hasi zen eskuineko eskuaz -jadanik eskularruz jantzia hura- ezker besoko alde biluzi, garbitu gabeko, "zikin"erantz. Berria -

Kultura

Astiro-astiro, gizonek **esnarazten** dioten plazerrean murgildu da. Juan Martin Elexpuru

Kaleetan barrena, bihurguneak etzanda hartu nituen, gidarien amorrua **esnaraziz**, axolagabe. Lander Garro

3 (era burutua izenomdo gisa)

Horrelakoxeko hots batek burrunbatu zuen etxe lokartuko gela **esnarazietan**, eta, horren ondo-ondotik, batistazko sudur-zapiari emaniko astindu arinek kolonia-uraren lurrina zabaldu zuten etxe osoan. Jose Morales

---

esnarazle *izond* esnarazten duena.

Hura ere zu bezalaxe, nork itzarriko egongo baita, baina ez dakigu zer izan daitekeen harenean **esnarazle**: haizearen firfira, akaso; kolore bat zeruan marrazturik; edo hitzen bat, beharbada, inork esaten asmatu ez duguna. Felipe Juaristi

---

esnatu *(ETCn **15.634** agerraldi)*, esna(tu), esnatzen **1** da *ad* lo dagoena bere egoeratik atera. ik **itzarri**[1].

Jontxo ez da inoiz iratzargailuak jo arte **esnatzen**. Aitor Arana

Azkenean, jaso zuten zoritxarreko zama haurraren gainetik, eta horra, hildakotzat zeukatena pozik agertu zen, orduantxe lotatik **esnatu** balitz bezala, eta inolako zauririk gabe. Askoren artean

Aldi berean bazenekien nekeza eta gaitza izaten dela anestesiatik **esnatzea**. Hasier Etxeberria

Gauaren erdian **esnatzea** ez zen ezohiko gauza niretzat, baina orduko hartan gelan norbait zegoelako irudipenarekin esnatu nintzen. Koro Navarro

Gizakia etzan eta ez da berriro jaikiko, ortzia desagertu eta gero ere, ez da itzartuko, ez da bere loalditik **esnatuko**. Elizen arteko biblia

Nolanahi ere, ezin esan daiteke uneren batean edo bestean loaldi hartatik **esnatzen** ez zenik. Jose Morales

Esnatu zen kartzelaria eta, espetxeko ateak zabalik ikustean, ezpata atera zuen bere burua hiltzeko, presoek ihes egin zutelakoan. Elizen arteko biblia

-Uste duzue **esnatu** egin beharko genukeela? -galdetu zuen Ronek deseroso, Lupin maisuaren aldera keinu eginez-. Iñaki Mendiguren

Esna zaitez, ene bihotza, **esnatu**, harpa eta zitara. Askoren artean

Loak hartu ninduen eta gauero bezala **esnatu** nintzen. Josu Zabaleta

Behin eta berriro **esnatu** nintzen ikaraturik. Josu Zabaleta

Katuak suaren usainarekin **esnatzen** zituan. Juan Garzia

Bularrean marka beltz-urdin bat zuela **esnatu** zen goiz hura ere gogorarazi zion. Koro Navarro

Harry Potter jiratu egin zen burusien artean, **esnatu** gabe. Iñaki Mendiguren

Edna luzaroan higatuko da ametsetan zehar, **esnatu** ezinik. Joseba Sarrionandia

Esnatuko ez zen emakume batekin lo egitea lasai proba zezaketen abentura bat zen, tentazio bat. Ibon Uribarri

Egunotan belarriak estalita eta burua lotan ibili bahaiz ere, **esnatzeko** ordua duk! Agustin Otsoa

Parranda haien ondoren **esnatzen** zenean -igande eguerdiko ordu bata aldean gehienetan-, betiko artzain langile eta prestua izaten jarraitzen zuen. Aitor Arana

Deskuidoan, **esnatzekotan** zagok honezkero. Juan Garzia

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Bat-batean **esnatu** eta negarrari eman zion. Askoren artean

Guztiz **esnatu** zen, amesgaiztoak ikaraturik. Ibon Uribarri

Hura ere ezustean **esnatu** zen eta begi arranpaloekin begiratu zion ohekide ezezagunari. Patxi Zubizarreta

Neska izuturik **esnatu** zen, eta garrasi egingo zuen urreginari labana ikusi izan ez balio. Patxi Zubizarreta

Erne zeudenak txunditurik gelditu ziren eta lo zeudenak ikaraz **esnatu**, eta denek sumatu zuten gorputza bezainbat bihotza ere argitzen zitzaiela. Askoren artean

Argitasun berde bat izan zen, eta Harry izerditan eta dardaraz **esnatu** zen. Iñaki Mendiguren

Zur eta lur, izututa **esnatu** ziren denak. Askoren artean

Egun batez, besteak bezalakoa izan behar zuen egun batez, Adan eztulka **esnatuko** zen, eta eztarriko minarekin, urdaila nahastuta. Bernardo Atxaga

Pultsua bare eta burua arin **esnatu** zen hurrengo egunean. Josu Zabaleta

Sei minutu igaro baino lehen loak hartuko balu, zazpi orduz egingo luke lo eta bihar fresko **esnatuko** litzateke lanera joateko. Eider Rodriguez

Alaitasunez beterik **esnatzen** naiz, eztarria kantu egiteko gogoz. Josu Zabaleta

Loak hartu eta geroago, lo eta amets zati batzuk geroago, neskalagunak berriro **esnatuko** du: [...]. Joseba Sarrionandia

-Ez da sekula **esnatuko** lo sakon horretatik -esan zuen Denethorrek-. Agustin Otsoa

Inoiz ez haiz ostera **esnatuko**. Juan Garzia

3 irud/hed

Anestesiatik **esnatzen** hasi zinenean, mamua ez zegoen han. Hasier Etxeberria

Ezari-ezarian, hiria lozorrotik **esnatzen** ari zen. Karlos Zabala

Balitekeela umetan eta eskolan tontoak izatea, baina gerora argituko zirela edo **esnatuko**. Iñaki Segurola

Ez dela seguru asko gorputzik jiratu, hankarik luzatu eta nagiak atera ezinez penatuko, eta ez dela egun batean (baldinbaitere!) bere heriotzatik **esnatuko** azkengabeko gau batean azkengabeki penatzera. Iñaki Segurola

Lurpean etzanak **esnatuko** dira eta pozez oihuka ekingo. Elizen arteko biblia

Halako batean hilak **esnatuko** dira, baina haien sekretuak Gorenekoak eta Haren epaiak gordeta edukiko dituzte belaunaldi guztien amaia arte. Koro Navarro

Lehen minutuetan txarto jokatu ostean, **esnatu** egin zen Athletic. Berria - Kirola

Udaberria **esnatzearekin** batera, lanak hasten dira: garraioa eta egurketa, bide guztiak lokazturik daudela; ereintzarako prestamenak. Jose Morales

Espero dezagun herrialde horiek eta Europako Batzordea **esnatzea** eta aurre egitea Alemaniaren eta Frantziaren energia inperialismoari. Berria - Mundua

4 du *ad* lo dagoena bere egoeratik aterarazi.

Gauaren erdian, oihu batzuek **esnatu** zuten, laguntza eske, Kopel Klotz hori. Koro Navarro

Atean eman zuten kolpe bortitz batek **esnatu** zuen. Josu Zabaleta

Portuko makinen hotsek **esnatuko** dute Olivier hurrengo egunean. Harkaitz Cano

Peterren negar-zotinek Wendy **esnatu** zuten. Julen Gabiria

Ikasleek hurbildu eta **esnatu** egin zuten, esanez: -Salba gatzaizu, Jauna! Galtzera goaz! Elizen arteko biblia

Gero berriro ekin zion, halako indarrez, non otseina, beldurraren beldurraz, gelatik kanpora itsumustuka atera, eta etxezaina **esnatzera** joan baitzen. Josu Zabaleta

Horregatik, neskatoak **esnatzen** saiatzen da, begiak ikusi nahi dizkie. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

esna zaitez (22); **esna zaitezte** (5)

al dun esnatu (5); **ama esnatu** (4); **baina esnatu** (4); **bat batean esnatu** (16); **bat esnatu** (5); **batean esnatu** (33); **batean esnatu eta** (12); **batean esnatu zen** (8); **batek esnatu** (10); **batek esnatu zuen** (6); **batekin esnatu** (5); **batera esnatu** (5); **batetik esnatu** (13); **batetik esnatu berria** (4); **batez esnatu** (10); **batzuek esnatu** (4); **berandu esnatu** (9); **berehala esnatu** (7); **berriro esnatu** (10); **berriro esnatuko** (4); **bezala esnatu** (4); **dun esnatu** (5); **dun esnatu behar** (5); **erabat esnatu** (6); **erdian esnatu** (9); **erdian esnatu nintzen** (4); **ere esnatu** (13); **ere esnatuko** (5); **esnatu arte** (7); **esnatu aurretik** (4); **esnatu baino** (4); **esnatu balitz** (6); **esnatu balitz bezala** (5);

esnatu behar (14); esnatu beharra (10); esnatu berri (7); esnatu berria (8); esnatu berritan (11); esnatu bezain (7); esnatu bezain laster (6); esnatu da (20); esnatu dela (4); esnatu dira (10); esnatu egin (101); esnatu egin behar (11); esnatu egin da (9); esnatu egin nau (4); esnatu egin nintzen (12); esnatu egin zen (23); esnatu egin ziren (7); esnatu egin zuen (8); esnatu egingo (5); esnatu egiten (31); esnatu egiten da (10); esnatu egiten naiz (5); esnatu ere (4); esnatu eta (126); esnatu eta bere (5); esnatu eta gero (4); esnatu ez (7); esnatu gabe (13); esnatu gara (5); esnatu ginen (9); esnatu izan (12); esnatu nahi (22); esnatu nahi izan (4); esnatu naiz (36); esnatu naiz eta (7); esnatu naizenean (19); esnatu nau (8); esnatu ninduen (19); esnatu ninduten (5); esnatu nintzen (65); esnatu nintzenean (23); esnatu ondoren (5); esnatu orduko (11); esnatu zara (4); esnatu zela (4); esnatu zelarik (6); esnatu zen (163); esnatu zen atzo (5); esnatu zen eta (9); esnatu zenean (57); esnatu zenerako (6); esnatu ziren (29); esnatu zirenean (5); esnatu zituen (12); esnatu zituzten (4); esnatu zuen (41); esnatu zuten (13); esnatuko balitz (4); esnatuko da (8); esnatuko den (4); esnatuko ez (6); esnatuko ote (4); esnatuko zara (5); esnatuko zen (4); eta esnatu (40); eta esnatu egin (9); eta esnatu zenean (5); ez zen esnatu (12); ez zen esnatuko (5); gabe esnatu (7); garaiz esnatu (7); gauaren erdian esnatu (6); gauean esnatu (4); gero esnatu (8); goiz batez esnatu (6); goiz esnatu (20); goiz esnatu zen (6); goizean esnatu (19); goizean esnatu eta (8); goizean esnatu zenean (4); goizean goiz esnatu (7); guztiz esnatu (4); hamarretan esnatu (4); hamarretan esnatu naiz (4); horretan esnatu (4); hotsak esnatu (12); ia hamarretan esnatu (4); ikaraz esnatu (6); izerditan esnatu (4); lehenago esnatu (5); lokalditik esnatu (5); lozorrotik esnatu (6); luze batetik esnatu (4); ni esnatu (4); noiz esnatuko (7); ondoan esnatu (4); orduan esnatu (9); orduantxe esnatu (5); oso goiz esnatu (5); osoa esnatu (5); umea esnatu (7); une horretan esnatu (4); zaratak esnatu (5); zen esnatu (14); zen esnatuko (5); zituen esnatu (4); zuela esnatu (5); zuela esnatu zen (4); zuen esnatu (8); zuen goizean esnatu (4); zuri esnatu (4); zuri zuri esnatu (4)

batera esnatzen (4); esnatzen ari (11); esnatzen ari zen (5); esnatzen bada (6); esnatzen da (17); esnatzen dela (4); esnatzen den (10); esnatzen denean (12); esnatzen diren (4); esnatzen ez (4); esnatzen gintuen (4); esnatzen hasi (9); esnatzen hasia (4); esnatzen naiz (14); esnatzen naizenean (6); esnatzen ninduen (6); esnatzen nintzen (8); esnatzen nintzenean (7); esnatzen saiatu (4); esnatzen zen (19); esnatzen zenean (11); esnatzen zuen (7); eta esnatzean (11); eta esnatzen (15); ez esnatzeko (20); goizean esnatzean (11); goizean esnatzen (4); kontzientzia esnatzeko (4); lozorrotik esnatzen (4); zen esnatzen (5)

---

esnatzaile *izond* esnatzen duena.

Askatasun orroa zen, **esnatzaile** eta beharrezkoa bere indar itsuan. Joseba Zulaika

---

esnatze *iz* lo dagoena bere egoeratik ateratzea.

Haurtxo baten **esnatze** gozoa izan zen, neskatoaren bero gazte eta usain leunaren eztitan. Ibon Uribarri

Esnatze leuna izan zen, pixkanakakoa, erabat ohartu zen arte argiak zuzenki jotzen ziola begietan. Joxemari Iturralde

Taiwan eta Hong Kongekiko politikan ordea, lokarturiko dragoiaren **«esnatze** emea» proposatzen dute. Berria - Mundua

-Nola sartu zara hona? -galdegin zuen Joanesek zurturik eta **esnatze** berriak ematen duen egonezinaz. Felipe Juaristi

Bertsolariek, dantzariek, kantariek, idazleek, izan apez edo laiko, denek frantses eta espainol maketoek erroz gora suntsitzen zuten Aberriaren bihar edo etziko **esnatze** biolentoa auhenkatzen, amesten, asmatzen eta iragartzen zuten. Itxaro Borda

Azkenik, irailaren 8an, etorri behar zuena, dibisio nazien suge berde-grisa Milango eta Turingo kaleetan barrena, tupusteko **esnatze** gogorra. Juan Garzia

Japoniaren indartze handi eta eraginkorragatik eta Txinaren **esnatze** ikusgarriarengatik ez balitz, balegoke esatea mundu-ekonomia Europakoaren adarra dela gaur oraindik ere. Koro Navarro

Gauero eta goizero berritzen den tortura hori, eta logale menderaezin hori, eta **esnatze** oraindik ere beldurgarriago horiek, ongi ulertarazi behar nizkizuen. Josu Zabaleta

Bizitzaren zikloa eta espirituaren **esnatzea** ematen dute aditzera. Berria - Kultura

Esnatzearekin batera egunsentiaren argitasuna sentituko duzu begietan, leihoko gortinak batbatean irekitzean logeletan sentitzen den modukoa. Joseba Sarrionandia

'Zer moduz?' galdetu dit Gorriak **esnatzean**. Joseba Sarrionandia

Esnatzean, Salomon ohartu zen Jauna ametsetan agertu zitzaiola. Elizen arteko biblia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esnatze urteak hasi ziren niretzat: pintura, liburuak, matematikako irakaslea, Sartre, Bernard Shaw, denak laguntzen zidan nire haurtzarotik esnatzen. Juan Kruz Igerabide

Baina, nirekiko, ilargiaren **esnatze**-jaikitze eta bere aimaritakoak, denak dira kontuan hartu beharrekoak, baita zein kaletatik pasatzen den ere. Pello Zabala

Arratsaldeko lo sendagarriak izaten duen **esnatze** prozesuan zegoen Mikel. Unai Iturriaga

---

esnatzear *adlag* esnatzeko zorian.

Esnatzear zegoelakoan, Norak liburua ezkutatu zuen soinekoaren gerrialdeko azpilduren artean. Anjel Lertxundi

Zeren Wagnerren musikaren baitan biolentzia ere gordetzen baita, neurriz gaineko bortxakeria-mota bat, geldiezina, irrazionala, neguko loalditik **esnatzear** dagoen piztia bezalakoa. Alberto Ladron Arana

---

esnatzearren *adlag* esnatzeko.

Bi jeinu tematiek onartu egin zuten eta, aurrena printzea **esnatzearren**, Maimuna zorri bihurtu, eta lepoan heldu zion Kamar Al-Samani. Patxi Zubizarreta

Iraganeko fosil bilakatzeko joera dugunok **esnatzearren**, zen maisuen teknika darabil Itxaro Bordak: zartako galanta kokotean. Markos Zapiain

Poliki-poliki mugitzen nuen, oso poliki, agurea ez **esnatzearren**. Koro Navarro

Zaita, jabeak ez **esnatzearren**, hanka puntetan sartu zen okindegira. Patxi Zubizarreta

---

esnatzeke *adlag* esnatu gabe.

Gurasoak **esnatzeke** izango ziren esperantzaz eragin zion giltzari sarrailan. Unai Iturriaga

Neurona gehienak **esnatzeke** zeuzkan arren, pare batek alarma jo zioten. Unai Iturriaga

Nire kabiltzarrari lotutako arrantzontziak batbatean marro egin zuen, lotan dagoen gizakoteak ametsen batek asaldaturik eta **esnatzeke** egingo lukeen bezala. Joseba Sarrionandia

---

esne *(orobat **ezne** g.er.)iz* **1** ugaztun emeen ugatzetan sortzen den isurkari zuria, hazkurri handikoa, ume jaio berrien berezko elikagaia.

Aittittek esku batez eraisten zuen **esnea**, behiaren errapeko lau erroak bere eskuko bost hatzez sakatzen zituen. Joseba Sarrionandia

Jimmy artzain baten bordara joan zen eta **esnea** ekarri zion zurezko zali batean. Lopez de Arana

Hartu zituen gatzatua, **esnea** eta atonduriko okela, eta bisitariei eraman zizkien. Elizen arteko biblia

Zoriontsu izango zarete eta biziki ugalduko **esnea** eta eztia darizkion lurraldean. Elizen arteko biblia

Nik **esnea** galletekin besterik ez diat hartuko. Lopez de Arana

Haren begiak uso bi ur ondoan, **esnetan** bustiak, uraxka-ertzean egonean. Elizen arteko biblia

Esnez hazi zintuztedan, ez janari sendoz, hau hartzeko ez baitzineten oraindik gauza. Elizen arteko biblia

Sethek lapiko bat **esne** berotu eta kanaberazko siropa eta banilla nahastu zizkion. Anton Garikano

Baso bat **esne** eskainiko diozu eta ezetz esanen du. Joseba Sarrionandia

-Aizu, emaidazu trago bat **esne**. Lopez de Arana

Zenbat pinta **esne** biltzen du egunero? Itxaro Borda

Gela kantoian geratuko zara baso **esnea** eskuan. Joseba Sarrionandia

Kimikaz baizik esplika ez daitekeen nahasketa horretarik, **esnea** gasnatzen zen eta bederatzi hilabeteren buruan haurra, gasna bezain samur, sortzen. Itxaro Borda

Abendua hilabete egokia da, ardi **esnearen** prezioaren eztabaidatzeko. Itxaro Borda

Ikertzaile hauek behiak normalean sortzen duen **esneko** proteina baten maila igo nahi izan zuten. Berria - Gaiak

Eusko Jaurlaritzak artzainak **esneko** arkumeen labeleari atxikitzera behartu dituela salatu du EHNE sindikatuak. Berria - Ekonomia

Zinezko bilakaera biologiko horren testigu, **esneko** hortzak esanera bera genuke. Patziku Perurena

2 (izenondo eta izanlagunekin)

Neskaren arnasa **esne** berria bezalakoxea zelako. Anton Garikano

Mahaia atonduta zegoen ordurako, **esne** beroa katiluetan, azukrea, eta esertzeko hurreratu zen. Joseba Sarrionandia

Ezta, handik hamabost minutura, **esne** lapurtuarena kontatu ostean, ama ere negarrez hasi zenean. Anton Garikano

Nire herriko buruzagiak elurra baino garbiago ziren, **esnea** baino zuriago. Elizen arteko biblia

Magia zuria eta beltza biak egiten omen zituen, **esne** urdina ematen omen zien behiei. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ilargiaren **esne**-kolore indargea. Lopez de Arana

Semea **esne**-mamitan hazten duenak haren zauriak osatu beharko ditu, garrasi bakoitzak barruak irauliko dizkio. Elizen arteko biblia

Bere gurdiaren ondoan zebilen, **esne** botilez beteriko alanbrezko saski bat eskuan balantzaka zerabilela. Lopez de Arana

Ekoizle penatuei ardi **esne** pintak duela bederatzi urteko prezioan pagatuko dizkietela. Itxaro Borda

Esne Bideak ibaiaren gainean dir-dir egiten zuen. Lopez de Arana

Ilundu ostean, ilargi beteak **esne** plater lez argitzen zuen dena. Joseba Sarrionandia

· Haren masaila **esne**-koloreak eta ile zurbilak izotz artean egindako egonaldi luzeek margulduak ziruditen. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Behi-gaztanbera eta ardi-**esnea**, bildots gizenen haragia, aukerako ahariak eta akerrak, ogi-irin garbi bikaina eman zizkion janari eta ardoa, mahats-odola, edari Elizen arteko biblia

5 irud/hed

Bere **esnea** zure erraietan isurtzen ari da eta bukatu arte ez du zakila aterako. Azkenean txixa sendo eta txuria botatzen dute, beraiek **"esnea"** eta "hazia" esaten diotena, begiak itxita eta arnasestuka. Aitor Arana

Zure **esne** beroa barrura bota nahi badidazu, erabili zulo egokia! Aitor Arana

Esnea bota eta berehala, osabaren arnasa baretu egin zen. Aitor Arana

6 ***esne behi*** *(orobat* ***esnebehi*** *g.er.)* esnetarako hazten den behia.

Hemen ezin daiteke **esne behi** bat edo mahasti bat jarri Europako Batasuneko agindurik gabe. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Arruitz herrian, 140 **esne behi** ditu eta beste 100 zekor eta bigatxo. Berria - Harian

Gaurko baserria (bi **esne-behi**, bi zekor, astoa, sei oilo, bi oilar, arbi-saila, hiru belaze, hektarea erdia artadi, ortu txikian berrogei tomate, hirurehun letxu, ehun leka-makila, perrexil txorta eta txerri txiki bat) iraupenekoa da. Edorta Agirre

Esne behien sektorean Nekazaritza Sailetik dirua jasotzeko baldintza ezinbestekoa produkzioa Kaiku-Iparlati saltzea dela salatu du Ajuriak. Berria - Ekonomia

Esan gabe doa "bisita kulturalean" geundela Holandan, ez **esne behi** ederren bat erostearen kariaz. Bernardo Atxaga

Hurritz-makilatxoa zerabilten beti Normandian behiekin: hiru ukittu hurritzarekin, eta **esnebehi** emankor egiten omen zen. Pello Zabala

Sindikatuaren arabera, gaur egun duela zortzi urte baino 700 **esne behi** usteategi gutxiago daude. Berria - Ekonomia

7 ***Esne Bide*** Eguzki sistema kokaturik dagoen galaxiaren izena.

Mollyk primeran ezagutzen zituen izarrak -Hartz Handia, **Esne Bidea**, Iparrizarra- maiz ahalegindu ohi zen haien izenak niri irakasten, isileko ehizan edo arrantzan aritzera irteten ginenean. Mirentxu Larrañaga

Begira **Esne Bidea**, izarrezko ibai hori, eta egin kontu orban bat baizik ez dela zabaltasun infinituan. Josu Zabaleta

Horren begietara gure eguzki-sistema partikularra ez baita **Esne Bidean** izar-hautsezko orbantxo bat baizik, eta **Esne Bidea** bera ez da *ci-devant* nebulosa bat baino gehiago. Iñaki Mendiguren

Arturus eta Vega, Altair eta Aldebaran jainkoak bezala distira eginez dauden argi puntuzko infinitu horretan orientatzea atsegale triste samar bat gertatzen zitzaion; pentsamenduaren bidez Ilargiko eta Baretasunaren itsasoko kraterrak korritzeak, **Esne Bideak** Zazpizarretan omen dagoen Alzion eguzkiaren inguruan duen biraketari buruzko hipotesiak irakurtzeak zorabiatu egiten zuen. Josu Zabaleta

Arturus eta Vega, Altair eta Aldebaran jainkoak bezala distira eginez dauden argi puntuzko infinitu horretan orientatzea atsegale triste samar bat gertatzen zitzaion; pentsamenduaren bidez Ilargiko eta Baretasunaren itsasoko kraterrak korritzeak, **Esne Bidea** baino handiagoak diren lau galaxia atzeman dituzte astronomoek. Josu Zabaleta

Esne Bideko izarren %10etan bizia egoteko baldintza egokiak daude. Berria - Gaiak

Italiako eta ESOko zientzialariak berilioaz baliatu dira kalkulu hori egiteko; haien ustez, 13.600 miloi urte ditu **Esne Bideak**. Berria - Gaiak

8 ***esne biltoki*** *(orobat* ***esnebiltoki****)*

Gablik ezin du gehiago gurekin lanera etorri; eta horregatik zu joango zara hemendik aurrera zakurrekin **esne biltokira** esnea eramatea. Bazen erosketak egiten ari zen jendea, eta esnea **esnebiltokira** zeramaten neska asko, eskulekuen kontra festagiroko soinua egiten zuten marmitekin. Josu Zabaleta

Esnebiltokia nahikoa urruti zegoen, eta gau hartan lanbroa ari zuen. Josu Zabaleta

9 ***esne bitsean*** *adlag* esne bitsetan.

Lineaz bertzaldetik, laguna irri-karkailaka ari zen: "Sesmako botikaria **esne-bitsean** omen zagok, antidepresiboak saldu ahala saltzen!". Aingeru Epaltza

10 ***esne bitsetan*** *(orobat* ***esnebitsetan****) adlag* oso pozik.

Lineaz bertzaldetik, laguna irri-karkailaka ari zen: "Sesmako botikaria **esne-bitsetan** omen zagok, antidepresiboak saldu ahala saltzen!". Matxain **esne-bitsetan** urtzen ari da, "bai, bai, bai" marmarka, listua kokotsetik behera, begia Martaren gainetik kendu gabe. Aingeru Epaltza

Honela pasatu ziren udako hilabeteak, lan bilaketa antzu samarrean, batetik, eta harreman hasi berriaren **esne-bitsetan**, bestetik, asteroko zure gutunaren hornimenduarekin, noski. Xabier Mendiguren Elizegi

-Aspaldi honetan ez zabilek **esne-bitsetan** -azaldu zuen Ttipik-. Aingeru Epaltza

Halabehar hutsa ere izan liteke, baina urteak iragan ahala zalantza sortu zait, nire hautu inkonziente bat ote zen: izan ere, batzuekin eta besteekin ibili arren, lagunik gehienak luma gaineko **esnebitsetan** hazitako haien artean egin nituen nik. Xabier Mendiguren Elizegi

10a ***esne denda*** *(orobat* ***esnedenda****)* esnea saltzen den denda.

Inori euskara entzutea eta inorekin euskaraz jardutea zuen, bada, gau oskarbietako amets nagusia, diru pixka bat egitearena edo Buenos Airesen **esne-denda** bat zabaltzearena baino bihotz barruagoko premia. Anjel Lertxundi

Osaba Vernonek kexatzeko norbaiten bila postetxera eta **esne-dendara** telefono-dei suminak egiten zituen bitartean, izeba Petuniak bere irabiagailuan birrindu zituen gutunak. Iñaki Mendiguren

Urte haietan jogurta ez zegoen modan artean; ez zen saltzen, orain bezala, **esnedendetan** edo tabernetan. Fernando Rey

Nire adiskide haiekin, hiriko zoko tristeenak bilatzen nituen gure bileretarako: lorategi publiko goibelenak, **esne-denda** ilunenak, zinema zoldazuenak, kafetegi biluzien eta hutsenak. Fernando Rey

11 ***esne lapiko*** *(orobat* ***esnelapiko****)*

Abeltzainak, lana amaiturik, abeletxeetako atetzarren alboan zeuden, **esne-lapikoen** eta arrain-zoparako gonbitaren zain. Jose Morales

Ba ez, nahikoa txarra, batez ere ume negarti baten **esnelapiko** huts sentiarazten nautenean. Arantxa Iturbe

12 *esne ontzi* *(orobat **esneontzi** g.er.)*

Zenbat kaiku, **esne-ontzi**, lera eta trineo, gurdi eta beste tresneri, txaboletako hainbat ontzi, zenbat uztarri eta beste ez ote dira egin urkiaz! Pello Zabala

Esne ontziak lurrean barreiatuak ziren, puskaturik. Elena Touyarou

Egin berri ziren burdinbideak lagun, **esneontziak** treinez zohatzin Buenos Aireserat. Herria

Ari ginen Joeba eta biok **esne-ontziak** garbitzen, eta konturen bat esan nuen, huskeriaren bat. Bernardo Atxaga

13 *esne-saltzaile* *(orobat **esnesaltzaile** g.er.)*

Aita **esne-saltzailea** da, eta hark ere ezin zuen sinetsi. Iñaki Mendiguren

Ulertarazi nahi zidan Francesen etxera joanak zirela esne haren bila, Luciok eta Francesek behi bat zutela, eta beren etxean ez ziotela erosten **esne-saltzaileari**, baizik eta egunero Normandian zituzten lur batzuetatik ekarrarazten zutela, Grouchet zeritzan landa batetik. Fernando Rey

Apeztegia-ko **esne-saltzaileak**, berak bakarrik, 500 baino gehiago hil zituela erraten du harro-harro. Jokin Urain

Amets egiteagatik erori zitzaion **esnesaltzaileari** esne-pitxerra. Joxerra Garzia

Etorkizunerako uzten dugu usu zoriona **esne-saltzaile** ameslariaren ilusio xaloaz horditurik. Berria - Kultura

Gaurko euskaltzale garatuaren "zale" hori esnezalearen "zale" hori berori da, **esne-saltzailearena**: euskararen balio erantsia, fakturazioa eta abar zikin bat. Iñaki Segurola

Film amerikarrak ezkutuan ematen dituen zinemazalea, txoriak ebanjelizatzen dituen fraidea, lehorrean geratutako marinel portugaldarra, egunero ogiren batean gerezia sartzen duen okina, judua dela ezkutatu behar duen neskatxa **esne-saltzailea**. Berria - Kultura

14 *esne zopa* *(orobat **esnezopa**)* *pl* esnetan eginiko zopak.

Orain itxita daukat sudurra, hortzik gabe ahoa / eta **esne-zopak** jan behar ditut. Bernardo Atxaga

Esne-zopak, edo galletak, edo morokila edukita, zertarako nahi duzu korfleis edo dena delako asmakizun hori? nire beste aitonari, aitona Patxiri, ardo-zopak gustatzen zitzaizkiola gogoratu uste dut, eta osaba Migel behin baino gehiagotan ikusi izan dut Errekarteko sukalde horretxetan **esne-zopak** jaten. Xabier Mendiguren Elizegi

"Arratsaldeon, McNab andrea" esan, eta platerkada **esnezopa** gordetzeko agintzen zion sukaldariari. Anton Garikano

· McNab andrearen ametsak dama batekin, ume batekin, **esnezopa** platerkada batekin? Anton Garikano

15 *esnezko* *izlag*

Burrunba ederra atera zuen pirikan joan zenean, eta marmitak aldats behera ikusi zituen, **esnezko** lerro zuriak marraztuz. Joxemari Urteaga

Esnezko erlaino lodiak Côte-Nord deitzen duten Quebec iparraldeko itsas-hegi hartako oihan beltzak estaltzen zituen. Aurelia Arkotxa

Esnezko argitasunak eraginik. Patxi Zubizarreta

Nire buru gainean, ilargi handi, bete, zabal bat hedatzen zen, zeru urdinkara **esnezko** baten erdian argi ematen. Josu Zabaleta

Aizarnako kobazulo batean ilargi **esnezko** *moonmilk* erreka bat dagoela baieztatu du Aranzadi Zientzia Elkarteak. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren esnea (3); **amaren esnea** (9); **amaren esnetan** (3); **ardi esne** (13); **ardi esnea** (6); **ardi esnearen** (3); **ardi esnez** (3); **ardien esnea** (4); **arroz esnea** (4); **artean esne** (3); **baina esne** (4); **baso bat esne** (14); **basquilait esnea** (3); **bat esne** (36); **bat esne eta** (3); **behi esne** (13); **behi esnea** (6); **behi esnearen** (15); **behi esnearen prezioa** (4); **behi esnearen prezioaren** (3); **da esne** (3); **da esnearen** (3); **da esnearen sektorean** (3); **du esne** (3); **dute amaren esnea** (3); **edo esne** (8); **ere esne** (3); **esne aldia** (6); **esne basokada** (3); **esne bat** (3); **esne behi** (13); **esne behi ustiategi** (4); **esne behiaren** (3); **esne behiaren sindromea** (3); **esne behien** (3); **esne bero** (3); **esne beroa** (13); **esne bidea** (12); **esne bidea baino** (3); **esne bideak** (4); **esne bidean** (5); **esne bideko** (4); **esne bila** (5); **esne bitsetan** (3); **esne botila** (8); **esne botila bat** (3); **esne ekoizle** (5); **esne ekoizleen** (3); **esne ekoizpena** (4); **esne ematen** (4); **esne epela** (3); **esne eta** (22); **esne garbia** (3); **esne gehiago** (12); **esne gehiago eta** (3); **esne gutiago** (3); **esne gutxiago** (3); **esne guztia** (3); **esne hautsa** (3); **esne itxurako** (3); **esne jetzi** (4); **esne jetzi berria** (3); **esne katilu** (4); **esne koloreko** (5); **esne kolorekoak** (3); **esne kondentsatu** (3); **esne kondentsatua** (4); **esne krema** (3); **esne litroaren** (5); **esne mamitan** (28); **esne mamitan bizi** (10); **esne minduaren** (4); **esne minduaren usaina** (3); **esne ona** (3); **esne ontziak** (4); **esne pinta** (4); **esne pitxerra** (3); **esne pixka** (6); **esne pixka bat** (5); **esne saltzaile** (3); **esne saltzailea** (4); **esne tanta** (5); **esne tanta bat** (3); **esne usain** (4); **esne usaina** (11); **esne zopak** (3); **esnea baino** (5); **esnea bota** (3); **esnea da** (4); **esnea edan** (8); **esnea edaten** (8); **esnea edo** (5); **esnea ekarri** (4); **esnea eman** (4); **esnea ematen** (8); **esnea ere** (5); **esnea esnebiltokira** (3); **esnea eta** (56); **esnea eta eztia** (34); **esnea ez** (7); **esnea hartu** (3); **esnea kendu** (6); **esnea kendu zidatean** (3); **esnea oparo** (4); **esnea saltzen** (3); **esneak eta** (3); **esnearekin batera** (3); **esnearen eta** (4); **esnearen prezioa** (12); **esnearen prezioaren** (7); **esnearen sektorean** (3); **esnerik ez** (6); **esnerik gabe** (5); **espazioa esne** (3); **eta amaren esnea** (3); **eta esne** (42); **eta esnea** (51); **eta esnea eta** (4); **eta esnea kendu** (4); **eta esneak** (4); **eta esnearen** (3); **eta esnez** (4); **ez esne** (3); **eztia eta esnea** (4); **ilargi esnea** (5); **ilargi esnezko** (3); **izor esnea** (3); **katilu bat esne** (7); **lehen esne** (4); **lehen esne aldia** (3); **litro bat esne** (4); **litro esne** (7); **milioi litro esne** (3); **nik esnea** (3); **nuen esnea** (3); **pinta esne** (8); **ura eta esnea** (6); **xokolet esne** (3); **zen esne** (7); **zion esnea** (3); **zuela esnea** (3); **zuen esne** (3); **zuen esnea** (4)

---

esnebehi ik **esne 6**.

---

esnebiltoki ik **esne 8**.

---

esnebits ik **esne 9**.

---

esnedenda ik **esne 10a**.

---

esnedun *(orobat **esnadun**)* *izond* esnea ematen duena.

Zenbat ardi **esnedun** dauzka Pakok? Itxaro Borda

Bereziki ardi **esnedunak** hazten dituzte baserrian, baita zenbait haragitako behi ere. Berria - Harian

Hogeita hamar gamelu **esnedun** eta hamar asteme. Elizen arteko biblia

Gizon argia baitzen Don Julian, argia, huna nun Buenos Aireseri hurbil lurrak arrandatu eta gero erosten dituen eta bere kondu behi **esnadun** hazkuntzan hasten. Herria

Aurtengo diru laguntzen ardiesteko gisan, behi **esnadun** hazlek herriko etxean aurkitzen diren paperak, bete behar dituzte orain beretik, ekainaren 15a aintzin. Herria

Artoa behi **esnedunak** bazkatzeko erabiltzen du familiak. Berria - Euskal Herria

Etxeetako ateak xehekatu zituzten, oheak hautsi, haurrak iratzarri, zaharra inarrosi, behi **esnedunak** marrumaz eta ardi kankailak marrakaz agorrarazi. Itxaro Borda

Deskuido handitxoa litzateke, maiatz-lehenak esnerik gabe etxean harrapatzea, alde guztietan esnea sortzen denean: Maiatzean txindurria ere **esnedun** izaten da. Pello Zabala

---

esnegain *(orobat **esne-gain** g.er.)* *iz* esnearen gainaldean sortzen den geruza mamitsua.

Gero esnea jetzi ondoren, zurezko ontzitara isuri eta, ontzien arabera lerrokatuz itsuek, esneari eragiten diote, eta goian geratzen den **esnegaina** hobetzat jotzen dute. Patziku Perurena

Merengea ez baitzuen probatu ere egiten, ezta **esnegaina** ere, merengea oroitarazten ziolako. Joan Mari Irigoien

Urdaileko lanari eragiteko aski da kikarakadatxo bat kafe hartzea, frantsesek demi tasse deritzotena, esne edota **esnegain** barik, afalostean. Javi Cillero

Baratzetik eta oilategitik ateratzen zutenetik bizi ziren, lur-jabeak aitonari ematen zion gurin eta **esnegainetik**. Joseba Urteaga

Erregeak bufoia bezala, haiek herritar estereotipatu edo *casheroak* behar zituzten **esnegain** -*la crème*- sentitzeko; goi mailako, dotore, fin eta polit sentitzeko. Bernardo Atxaga

Inoiz ez zuten patatarik horrela probatu, gehienetan etxean ez zen eta gantzik edo oliorik izaten, eta **esnegain** edo segoarekin moldatu behar izaten zuten etxekoandreek janaria maneatzeko. Pako Aristi

Liebkind Bendelek Dov Ben Zev bere etxera gonbidatu zuen, *blintzeh* eta **esnegain** garratzezko zopa bat prestarazi zion Freideli, eta haiekin biekin plangintza xehe bat antolatu zuen. Koro Navarro

Esnegain gabeko jogurt bat baizik ez zuen gosaldu Sven Malysenek goiz lainotsu hartan. Josetxo Azkona

Baina ontzi garraztutik ardo garratza, hartan ere sutan luzaz edukitako esnearen gisa ahitzen zitzaizkion onik irteteko ametsak, **esnegaina** bezala loditzen etsipena. Anjel Lertxundi

Esnegain apurtua da asfaltoa. Harkaitz Cano

Ospatzekoren bat genuelarik, amak **esnegainezko** tostadak jatera garraiatzen gintuen atso-arte hartara. Aingeru Epaltza

Egin ezazu bizkor saltsatxo bat **esnegainaz** eta ketchupaz. Eskarne Mujika

Esnegainezko galleta batzuk ere har nitzan ahaleginak egin zizkidan, baina ez nituen hartu. Irene Aldasoro

Behar-beharrezko gaiak ez ezik, bakarrik bizi den emakume batek bere buruari opa ohi dizkion plazer txikiak ere bai: **esnegainezko** izozkia (benetako almendrak, benetako mahaspasak), Italiatik inportatutako gailetak, txokolate-barratxoak, bai eta konpresak ere. Oskar Arana

Baziren erreboilo ederrak, **esne gaina** bezain zuriak; Ez zen Mary Annena bezalakoa, transparentea, zuria baizik, **esne-gain** kolorekoa. Karlos Zabala

Erakusleihoan ohiko goxokien sedukzioak erakusten ziren, **esnegain** pastelak, palmondoak, kornukopiak, opilak, arroz pasteltxoak, jesuitak eta, nola ez, kruasanak. Jon Alonso

Arratsaldeko lauretan gas-lanparak pizten ziren kafetegi guztietan, kafe-**esnegaina** zerbitzatzen hasten ziren, militar eta funtzionarioek beren mahai erreserbatuetan jarririk zeudela. Xabier Olarra

---

esnegile *iz* esnegintzan aritzen den pertsona.

Chaumes-eko **esnegileen** sindikatu arteko batasun burua. Herria

---

esnegintza *iz* esnea ekoizteko jardunbidea.

Berotasun eta etorri oparoz deskribatu zuen **esnegintza** ingelesaren zitalkeria, eta nolako egoeran banatzen zen esnea etxe atarietara. Anton Garikano

Harreman «naturala eta ohikoa» izango dutela agindu zuten, besteak beste, Errioxa eta Idiazabal jatorri izenetan eta **esnegintzan** «arazo eta interes komunak» dituztelako. Berria - Ekonomia

Parmalat da Europako **esnegintza** enpresarik handiena. Berria - Ekonomia

Horregatik, susmo txarrez ikusten dute iazko irailean bere bezeroei Italiako **esnegintza** konpainiaren 350 milioi euroko tituluak eskaini izana. Berria - Ekonomia

---

esnegorri *iz Russula* generoko onddo laranja-kolorea, pinudietan hazten dena. *(lactarius deliciosus).*

Esnegorriz beteriko pastel bat, gurinezko gozopilak, konpota eta mota askotako opilak. Jose Morales

Berehala, askotariko jakiak agertu ziren erretiluaren eta botilen inguruan: kabiarra, gazta, **esnegorri** gazituak, onddoak, eta beste janari batzuk, sukaldetik plater estalietan ekarri berriak, estalkitik zehar olio beroaren zirti-zartak entzuten zirela. Jose Morales

---

esnekara *izond* esnearen kolorekoa edo tankerakoa.

Une hartan oso zeru bitxi eta ederra ikusten zen goiko leiho hautseztatu, aurreko udaz geroztik garbitu gabean: lehen begiratuan gris-**esnekara** ematen zuen, ke-kolorea, baina, luzaroago begiratuz gero, kolore urdina agertzen hasten zen, zerua urdintzen hasten zen, gero eta sakonago, gero eta argiago, gero eta mugagabeago. Jose Morales

---

esneketari *iz* esne saltzailea. ik **esnezale**.

Esneketaria genuen gizon larri bat, handi eta zabal, Turkoa deitzen zutena, indar handia bazuelakotz dudarik gabe. Janbattitt Dirassar

Okindegiko mutilak pasaratzeko seda lortu digu, matazatxo txiki-txiki bat 90 zentimotan, errazionamenduko kupoiak **esneketariak** lortzen dizkigu, gaztaz ehorztetxe bateko jabeak hornitzen gaitu. Josu Zabaleta

Etxeratzean frankotan atzematen nuen **esneketariaren** kamioia zitekeen. Itxaro Borda

Borgesek Fermin Egurenen bitartez egiten zigun barre **esneketari** izateko besterik balio ez genuenoi. Iñigo Aranbarri

Fededunak ziren segurki bainan elizak urrun ziren eta ez zen pausa egunik behi deiztalentzat ez eta **esneketarientzat**. Herria

---

esneki *iz* oinarritzat esnea duen jatekoa.

Esneaz eta **esnekiez**. Edorta Agirre

Ez esnerik, ez inolako **esnekirik**. Iban Zaldua

Probiotikoak, berriz, **esnekietan** egoten dira: jogurtean, kefirrean. Berria - Gaiak

Barnetegi hartako ekonomatoan saltzen ziguten salda pasteurizatu hura ez zegoenez edaterik, **esnekia** behintzat hobeto hartzen nuen. Koldo Izagirre

Bai lehengaiak [...], bai produktu elaboratuak ere -pastak, opilak, hestekiak, pateak, papilak, **esnekiak**, plater moldatuak-). Edorta Agirre

Gasnaz gain, ardi esnearekin gaztanbera eta horrelako **esnekiak** ekoizten dituztenak ere badira. Berria - Ekonomia

Bizkotxoz, jelatinaz, fruituz eta **esnekiz** egindako postre gozoa. Iñaki Mendiguren

Eroskin izan zen: jateko zerbait eskuratzera joan, eta **esnekien** sekzioaren beste muturretik norbait ni tirokatzera zihoala konturatu nintzen. Iban Zaldua

Barazki-postuetatik hasi eta harategietara, fruta-dendak inguratu eta **esnekien** saltokietaraino, burutik buru zeharkatu genuen. Aingeru Epaltza

Halako batean, **esnekien** apalaren errebueltan, Ismael sumatu du, inoiz baino herrenago, eta orga erdi hutsik daramala. Iban Zaldua

Esneki -enpresek gero eta gutxiago ordaintzen dute litroko eta baserritar askok esnea ekoizteari utzi beste erremediorik ez du. Juan Luis Zabala

Nik lan egiten nuen [...] **esneki** fabrika itxi zutenean, besoa moztuta bezala geratu nintzen, ez nekien zer egin, ez nekien nora jo. Juan Martin Elexpuru

---

esnelapiko ik **esne 11**.

esneontzi ik **esne 12**.

esnesaltzaile ik **esne 13**.

esnetegi *iz* esnea ekoizten edo saltzen den etxea.

Ekainean graduatu egin zen, Darigold **esnetegian** hasi zen lanean, eta Guardia Nazionalean sartu zen. Koro Navarro

Uste dut, hala ere, Excelsior **Esnetegiak** epaitegira joko duela galdutako ondasunengatik, zaldiarengatik, gurdiarengatik eta abar. Lopez de Arana

Laborariek **esnetegiak** okupatzen zituztenean ordea, zernahi gerta zitekeen. Itxaro Borda

Ez genuen **esnetegirik** aurkitu eta, hala, goxo-saltzaile baten dendara joan eta masusta-gorri gas-ur botila bana erosi genuen. Irene Aldasoro

Esnearen prezioak **esnetegi** handiek inposatzen dituztela argitu zuen. Berria - Ekonomia

SAFEReko eskualdeko buruzagiaren bulegoa setiatzen, **esnetegi** industrialak gogorki okupatzen, Baionan antolaturiko manifestaldi eta preso politiko zein errefuxiatuen aldeko ekintzetan ikusten zen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
esnetegi industrialek (3); **eta esnetegi** (3)

esnetsu *(orobat **esnezu** g.er.)* **1** *izond* esnearen tankerakoa; esnearen kolorekoa.

Usain berezia zuen eta bere-berea, zeren eta haren azal **esnetsuari** esne usain berezia baitzerion. Iñaki Segurola

Susanaren izter **esnetsuek** ez daukate bilorik, eta batzuetan, izterrak soilik begiratzean, haur batenak dirudite. Eider Rodriguez

Rambuteau kalearen amaieran, zeru **esnetsua** ubelez margotua ageri zen behealdean, eguzkiaren leinuru arrosen kariaz. Karlos Zabala

Lanbroa eta behelainoa izango dira nagusi, baina bertako lainoa, ez haizeak darabilena, eta giro **esnetsu** eta bustitzaile horretan beste isla batzuk agertuko dira. Joseba Sarrionandia

Jimmy Herf ibaira hurbildu ahala, airea **esnetsu** bihurtzen zen, lainoarekin nahasita. Lopez de Arana

Batzuetan, erlaino **esnetsu** mugikorrek argia hitsarazten zuten. Aurelia Arkotxa

Lantxurda-tantek distira **esnetsua** egiten zuten ilunpeetan. Anjel Lertxundi

Lanbroa eta behelainoa izango dira nagusi, baina bertako lainoa, ez haizeak darabilena, eta giro **esnetsu** eta bustitzaile horretan beste isla batzuk agertuko dira. Joseba Sarrionandia

Behatoki bikaina aurkitu zuen, gardentasun **esnetsu** moduko haren parean. Karlos Zabala

Zerusabaia ere zuri zuria izango da ostertzeraino, eta laino airea zeharo **esnetsua**. Joseba Sarrionandia

Jimmy Herf ibaira hurbildu ahala, airea **esnetsu** bihurtzen zen, lainoarekin nahasita. Lopez de Arana

Eta berriro eguzkia hantxe, kristal **esnetsu** baten atzean bezala gandutua, lurrinezko sargoria, ikusi ere egiten zena. Joxe Austin Arrieta

Keran baserriak zeru grisaren eta itsaso **esnezu** haserretuaren erdian zegoela ematen zuen, lurrean oinarrik finkorik ez bailuan. Itxaro Borda

2 esne asko duena.

Kafesne handi bat, **esnetsua**, ez oso beroa, basoan, hiru koxkorrekin. Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
esnetsuak bere aurpegia (3); **izter esnetsuak bere** (3); **zure izter esnetsuak** (4)

esnezale *iz* esne saltzailea. ik **esneketari**.

Hainbat astetan batetik bestera lan bila ibili ostean, parrokiako basetxe guztietan barna, Charliek lan bat aurkitu zuen; **esnezale** eta artzain, Cox laborariaren lurraldean, herrixkaren beste aldeko muturrean. Mirentxu Larrañaga

Deabruak eraman nazala hori **esnezalea** ez bada eta pinta bat krema ez badakar gure kaferako. Lopez de Arana

Hamaikagarren Etorbideko bazterbidean ikusi nuen nola merkantzi tren batek **esnezalearen** gurdia harrapatu zuen. Lopez de Arana

Egunero-egunero agurtu, zirto bat edo beste zirikatu nahian bota, eta konfiantza apur bat hartu nuen neure **esnezalearekin**. Txillardegi

Gaurko euskaltzale garatuaren "zale" hori **esnezalearen** "zale" hori berori da, esne-saltzilearena: euskararen balio erantsia, fakturazioa eta abar zikin bat. Iñaki Segurola

esnezopa ik **esne 14**.

esnezu ik **esnetsu**.

esnezuri *iz adkor* esperma.

-Hori da dena kaka eta pixa eta **esnezuria**! Inazio Mujika Iraola

esnifadore *iz* esnifatzen duen pertsona.

Eztok gureko **esnifadorien** dokumento poliziala ixetie, ezta? Urtzi Urrutikoeetxea

esnifatu, esnifa(tu), esnifatzen *(orobat **snifatu** g.er.)* du *ad* droga sudurretik xurgatu.

Esnifatu eta burua atzerantz botatzen zuela sudurreratu dut nik ere. Urtzi Urrutikoeetxea

Ni, Chiquinhoren etxean, hautsa **esnifatzen** Fernando, Marcito, Miltinho, Eliana, Rita eta Laisekin, kokaren gauzak, garai hartan kontzientziaren benetako erredentzioa iruditzen zitzaidan. Karlos Zabala

Behin batean, koka **esnifatzen** ari ginela, Rodolfok titi bat txupatzen uzteko eskatu zidan, eta Cida hantxe gelditu zen begira, beste titia ukitzen zidala, ahoan musuak ematen eta gorputza gure kontra igurzten. Karlos Zabala

Jokoan ere jaitsi egin nintzen, eta anfetaminei eta **esnifatzen** nuen kokainari esker eutsi ahal izaten nion. Joan Mari Irigoien

Kontua da, tipoak bisita egiten zigunean, bai Fernando bai ni bero-bero jartzen ginela bi lerro **esnifatu** bezain laster. Karlos Zabala

Mikek eta Alicek egun osoa ematen zuten **esnifatzen**, eta horretan segitu badute eta oraindik bizirik badaude, piltzar desitxuratuak izango dira, inoren aurrean ez aurkezteko modukoak. Karlos Zabala

---

esnob *(orobat **snob**)* *izond/iz* modan dagoena besterik gabe imitatzen edo onartzen duena.

Ez diot hau poema haiek, txarraren txarrez, akabu horixe merezi zutelako, ezta ere idazlanak suntsitzearen bindikazio horrekin inor epatatu gura dudalako, ez naiz hain **snoba**. Xabier Mendiguren Elizegi

-Horren **esnoba** izateari utzi beharko zenioke, Karlos. Iban Zaldua

Waldenek ez zien jaramonik egiten, eta **snoba** izateaz salatzen zuten. Koro Navarro

Nik ez nekien, ordea, merkatari ezagun aberastu berri baten alaba zela hura, neska ezin **esnobago** bat, gizon famatuak eta gizarteko izarrak aldi batez oheratzen zituena. Joan Mari Irigoien

Beti iruditu izan zait **esnob** ergel bat, zein unibertsitatera joan zinen eta zenbat diru irabazten duzun gehiegi axola izaten zaion pertsona horietako bat. Oskar Arana

"Ismoa, ista" atzizkiak ez zaizkit sobera laket, maiz kulturarik ezaren marka diruditelakotz, sinplifikazio **esnobak**. Piarres Aintziart

---

esnobismo *(orobat **snobismo**)* *iz* esnoba denaren nolakotasuna; jarrera esnoba.

Ingeles erakasleak aldiz, lehenagoko handikeria eta **snobismoak** bazterrera utzi ditu, alafede baietz! Piarres Aintziart

Esnobismoagatik murgildu zen beharbada hiriaren zabortegietan, gaztetako errebeldia merkeak bultzatuta nahastu nahi izan zuen giza hondakinekin. Joxean Agirre

Lotsaturik sentitzen naiz, neure **snobismoaz**, neure axalkeriaz, neure moderno izan nahi barregarri hartaz. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez zegok arazorik, motel: badakik, **esnobismo** hutsez eskatzen diat Tanqueray-a. Iban Zaldua

Holako **snobismo** ziztrin eta haizazua ezin dut eraman. Patziku Perurena

Betidanik, klase-**esnobismo** batengatik beharbada, estimatu zuen Yvanek *junk food*a. Joxan Elosegi

---

esofago *iz* hestegorria.

Mikelek barrabilak **esofagoan** dantzatu bezalaxe sortu zitzaion barregura. Unai Iturriaga

Esofagoaren hantura izan zen nire hil behar haren kausa, baina gertatu zenean inork ere ez zekien, eta gau hartan handik aurrera eta biharamunaren zatirik handienean etsirik nintzen nireak egin zuela. Oskar Arana

Bihotzak pertika-jauzirik egin al dezake, **esofago** hodiari-edo helduta? Joan Mari Irigoien

---

esol ik **hesol**.

---

esortatibo *(corpusean **exortatibo** soilik)* *izond* aholkuen edo erreguen bidez bultzatzen duena.

Idazkerak galdu egin du Lehen Bizitza-n zuen borobiltasuna, eta bigarren partean bereziki tankera aszetiko eta **exortatiboa** hartu du. Askoren artean

---

esortatu, esorta(tu), esortatzen du *ad* modu jakin batean jokatzera bultzatu, arrazoi edo erreguen bidez.

-Etenik gabe meditatu beharra duzu, zeren meditazionea baita kontenplaziorako bide eta bizitza spiritualaren harroin -**esortatzen** ninduen aita Bartolomek. Joan Mari Irigoien

---

esortazione *iz* esortatzea; esortatzeko erabiltzen diren hitzak.

Nola ez nuen maitatuko, bada, baldin kontseilu ezin hobeak emaiten bazizkidan, bertzalde, eta baldin haren **esortazioneak** justuak eta doiak baziren. Joan Mari Irigoien

Hantxe neuzkan, halaber, zilizioak eta lizifrina, zeren eta haiek ere guztiz beharrezkotzat jotzen bainituen, nahiz eta ezin ahantzi nuen, bertzalde, aita Tomméren **esortazionea**, haien neurriz erabiltzerat eraman ninduena. Joan Mari Irigoien

---

esorzismo ik **exorzismo**.

---

esoteriko *izond* iluna eta ezkutua dena, iniziatuek baino ulerten ez dutena.

Esoterikoa talde txiki batek bakarrik uler dezake; exoterikoa, berriz, jende askok ezagutzen duena da. Xabier Olarra

Bata ordena exoterikoa da, irakurle ororentzat zabalik dagoena, eta bestea ordena sekretua da, **esoterikoa**, bere existentzia hautemateko eta ezkutukoa dezifratu eta ikertzeko ahalegina egiteko gai denarentzat bakarrik zabalik dagoena. Xabier Kintana

Erdi Aroko gauzakiak, altzari gotikoak, kandelen argia, ikur **esoterikoak**. Alberto Ladron Arana

Esanahi **esoterikoa**, kutsu mistikoa duen objekturen bat. Alberto Ladron Arana

Inspirazioa bera bezala, jenialtasuna dohain sekretua zen, **esoterikoa**, sorleku ezezagunekoa. Bernardo Atxaga

Antzinako filosofiak bi modutakoak ziren: exoterikoak, filosofoek berek ere erdizka ulertzen zituztenak, eta **esoterikoak**, inork ulertu ezin zituenak. Xabier Olarra

Oro har, arotzek eta mekanikoek baino gehiago hitzegiten dute beren lanaz, ukitu **esoterikoak** erabat ahaztu gabe. Bernardo Atxaga

Straussek uste du idazkera **esoterikoak** autorea bere ideia heterodoxoengatiko jazarpen politikoetatik salbatzeko xedea duela. Xabier Kintana

Eskuizkribuak ospea berreskuratu zuen hainbat ingurutan: izenda-ezin-daitekeen-hainbat-gauza-ezkutukoren liburu arraroaren eta arriskutsuaren fama jaso zuen zirkulu **esoteriko** eta espiritistetan, eta haren sona handiagotuz joan zen urteek aurrera egin ahala. J.M. Olaizola "Txiliku"

Harriei, mineralei, kristalezko bolei eta gainerako tresneria **esoterikoari** ongietorria egin zien John Deek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Beste era batera geraezinak ziren odol-isuriak agortu egiten zitzaizkion Grigoriren errezo eta sendakuntza **esoterikoekin**. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

esoterismo *izond* alkimia, magia, astrologia eta esperimentazioan oinarritzen ez diren kideko ezagueren eta praktiken multzoa.

Harrezkeroztik, genetikan, antropologian, arkeologian eta beste hainbat zientzia-ataletan (haien artean **esoterismoan** eta ezkutuko jakintzetan) aditu ziren anitz ikerlari hasi

ziren lanean Ahnenerberen baitan. Alberto Ladron Arana

---

espa *iz* inbidia, gorrotoa.

Halere, askotan, **espagatik** edo, salatu egiten zuten exekutorigilea, hereje, agote edo judio zela azalduz. Patziku Perurena

Berehalaxe, elizaren eta erregeren arteko **espagatik**, Santxo Azkarrak kiskali eginen zuen San Nikolasen itzalpeko burgo osoa. Patziku Perurena

Sortzez Leitzako Malesakeneko semea omen zen, Don Thomas Arribillaga, eta emakumeren batekiko maitasun kontu sekretuak eta **espak** zirela medio, hil omen zuten labankazoka 1779ko urriaren 27ko ilunabarrean, Aranotik Leitzara abere gainean heldu zela mendiz. Patziku Perurena

---

espabilatu, espabila(tu), espabilatzen da/du *ad adkor* ernatu, buruargitu; eskarmentua hartu.

Aiora Renteria kantariak «**espabilatu**, zamak arindu eta gorputzak eskatzen duena» egin behar dela dio: «Gauzak ez daude erraz, baina traumak eta zamak gainetik kendu behar ditugu». Berria - Kultura

Haizea hartu beharra daukala, ea **espabilatzen** den. Iñaki Iñurrieta

Italiarrak beti egon dira apur bat atzeratuago kreditu txartelen kontu hauetan, baina azken bi urteotan **espabilatu** direla dirudi, orain dela urte gutxi arte ezin zen autopistakoa txartelarekin ordaindu.Gari gaztetxoa horrelakoa etorri da gixajoa, eta seguruenik ez da **espabilatuko**. Mikel Hernandez Abaitua

Karajilloa da hartu beharko zenukeena, **espabilatzeko** behintzat. Sonia Gonzalez

Bertako abertzaleak hain dira gutxi eta sakabanatuak, non **espabilatu** beharrak bide berriak markatzen dituen. Hasier Etxeberria

-Begiraiozu alde onari -esan zion Einsteinek-: bizitzea ikastea bada, ederki **espabilatuko** zen Teller. Fernando Morillo

Beroarekin tontotuta bezala joaten zara askotan, eta erauntsi horrek **espabilatu** egin gaitu. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **espabilatu egin** (3)

---

espageti 1 *iz* jateko orea, jatorriz italiarra, gari irinez egina, luzea eta mehea.

Bide batez ogia, **espageti** batzuk eta tomate frijitua erosi zituen. Unai Iturriaga

Hara eramaten du gas-sukaldetxoa, tea egiteko edo kontserba-poteetako janaria berotzeko: **espagetia** haragi pikortxoekin, snoek 31 tipularekin. Oskar Arana

Aurreko gauean entsalada grekoa eta **espagetiak** jan zituen. Xabier Olarra

Nik lehen **espagetiak** prestatzen nituen parrandatik bueltan, baina *speed* madarikatu honek gosea ere lapurtu egiten dit. Unai Iturriaga

Egun hartan **espagetiak** bolognese erara prestatzen ari zen, baina gehigarririk erantsi gabe. Joxemari Iturralde

Legatza erromatar erara, arroza Kubakora, **espagetiak** Boloniakora, ogi española, frantses arrautzopila, edo taloa. Iñaki Segurola

Atzerantz salto egiteko, berriz, indar berezia egin behar du **espagetiak**, eta mundu guztiak daki **espagetiak** ez direla, berez, oso muskulosoak. Unai Elorriaga

San Frantziskoko jende multikolorea, Aitor kazetari alpinista, Dionisosen ardoak, **espageti** erreak. Unai Iturriaga

Kate horiek elkarren artean lotu gabe daude, **espageti** egosi batzuen modura, katramilatuta baina loturarik gabe. Berria - Gaiak

Ducados bat piztu zuen eta **espageti** platera alboratu. Unai Iturriaga

Parez pare **espageti** platerkada bat genuela ari ginen hizketan, ardo pitxerrarekin, italiarren artean. Fernando Rey

Espageti tontor bat zegoen jaun eta jabe jangela-egongelako mahai gainean. Jon Muñoz

Albengako trattoria batean afaldu genuenekoaz gogoratzen naiz, nola gustatzen zitzaion Norari chiantia, leku konkretu bateko carbonara **espagetiak** zein onak ziren esaten zidan bakoitzean nik ez nuen diferentziarik sumatzen. Mikel Hernandez Abaitua

2 irud/hed

What the toll tells paraje galdu batean abiatzen da, ***espageti*** *western* klasikoen moduan, bateria zartako ikaragarria iritsi bitartean. Berria - Kultura

---

espainar ik **espainiar**.

---

espainaratu ik **espainiaratu**.

---

espainazale ik **espainiarzale**.

---

espainera ik **espainiera**.

---

espainiar *(orobat **espainar** g.er., **españar** g.er. eta **españatar** g.er.) izlag* **1** Espainian sortua, Espainari dagokiona; Espainiako biztanlea.

Itxura denez, **espainiar** gripearen antza ematen diote mutazioek H5N1ari. Berria - Gaiak

Espainiar bandera harro altxatu, eta moroak akabatzera. Txillardegi

Sarritan hitz egiten dugu **espainiar** nazionalismoaz, batere zehaztu gabe zertaz ari garen. Berria - Kultura

Hamiltonek **espainiar** herritartasuna lortzeaz bat, merkatuko jokalari desiratuenetariko bat izatera pasatu zelako. Berria - Kirola

Espainiar Filologia, Ingeles Filologia eta Frantses Filologia bazeuden, baina gure Euskal Herrian zergatik ez zegoen Euskal Filologiarik? Berria - Euskal Herria

Bobadilla **espainiar** gobernadorearen galeoia, urrez eta zilarrez zamaturik, Bahamas inguruan hondoratua zen. Juan Garzia

Madrilen hauteskunde orokorrei gobernu kontserbadorearen galtzea ekarri zuten eta **espainiar** tropak Iraketik erretiratzea, ondorengo sozialistekin. Berria - Harian

Espainiar agenteak, fededuna ez izanagatik ere, esker isilak eman zizkion Jainkoari bere bihozkadengatik. Alberto Ladron Arana

Egunerokoaren kronikalari zorrotzak igoera sumatu zuen barometro politiko eta ekonomikoan; "1649 eta hori guztia", San Bartolomeko sarraskia eta **espainiar** Inkisizioa barne, iraganeko gauzak ziren. Iñaki Mendiguren

Espainiar konstituzioaren alde. Herria

Nori errua botako, eta nahitaez behar ditugu "Beste" nagusi errudunak: ETA, **espainiar** Estatua, nazionalismoa, komunikabideak. Joseba Zulaika

Espainiar telebista publikoan egunero eskaintzen den *Gente* magazinaren irudira. Iñigo Aranbarri

Atentatu baten inguruko albistea **espainiar** prentsan, horrela hasten dena [...]. Iñigo Aranbarri

Espainiar inposaketari ez, frantziar mespretxuari ez. Berria - Euskal Herria

Espainiar legeak ez zitzaizkien komeni ez haien manerei, ez garaiko egoerari. Iñaki Iñurrieta

Filipinen **espainiar** konkista K.o. 1565-71n eta Formosaren holandar konkista 1624an Japoniari gerta zekiokeen patuaren adibideak ziren. Iñaki Mendiguren

Politika berari jarraitu zioten **espainiar** inperiogileek Erdialdeko eta Hego Amerikan. Iñaki Mendiguren

Espainiar Amerikari begiratu bat ematen badiogu, Erdialdeko Amerikako inperiogileek beren hiriburua behin eta betiko Tenochtitlan-en (Mexiko hirian) -"Delhi" batean- egin zuten. Iñaki Mendiguren

"Espainiar faxistek Frantziako hegoaldeko muga mehatxatzen dute" zioen Agirrek. Alberto Ladron Arana

Buenos Airesera datozen **espainiar** banderadun itsasontziak kontrolatzea. Edorta Jimenez

Jardun osoko lau lagun, gerratean **espainiar** polizi indarretakoak izan direla diotenak, eta tartekako hamabi lagun ei dira. Edorta Jimenez

Alcoleako ohiturak **espainiar** garbiak ziren, zentzugabekeria hutsa, alegia. Josu Zabaleta

Hiru mendez feudal kutsuko hainbat pribilegio gordetzeko bertako elite oligarkikoek gidaturiko ahaleginean laguntzera, **Espainiar** Monarkiaren egiteko kolonizatzaile eta zibilizatzailean buru-belarri murgiltzera. Iban Zaldua

«Euskal eta **espainiar** administrazioen arteko harremanak hobetzeko eginahalak» egingo dituela dio Espainiako Gobernuaren ordezkariak. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Erasoaldi batean, gainera, soldadu **espainiar** batek tiro egin zion ezkerreko besoan, eta zauriturik eraman behar izan zuten erietxera. Felipe Juaristi

Berehalakoan galdegin zion mapagileari ea ba ote zekien non zen marinel **espainiar** besamotz hura. kapitain **espainiar** haren sortetxea. Felipe Juaristi

1983ko urrian Jose Inazio Larretxea errefuxiatua bahitzen saiatu ziren Hendaian lau polizia **espainiar**. Jokin Urain

Ez zion kontatu nola aspaldiko galeoi **espainiar** baten agerpenak bizia salbatu zien Leviataneko guztiei. Felipe Juaristi

Modulu, galeria eta kartzela bereizi guziok kontuan hartuta, esan dezakegu 106 lekutan banatuta daudela presoak estatu **espainiar** eta frantziarrean. Jokin Urain

Goiz da, txartelarekin ordaintzen dut, ez daukat diru **espainiar** gehiegirik, dena txartelekin egitea gustatzen zait posible baldin bada. Mikel Hernandez Abaitua

Eta 22 batailoi bakarrik (liberalen heren bat ozta-ozta): 16 euskalerritar eta 6 **espainiar**. Txillardegi

3 (izen gisa)

Egun horretan Pilar ontziak karel artean Ernest Hemingwayrekin batera Winston Guest eta lau **espainiar** ditu. Edorta Jimenez

Guardiek atzemanik geunden sei gizonak atzerrikoak ginen: hiru **espainiar**, bi frantses eta ni. Joan Mari Irigoien

18.000 eurotik gorako zorra du **espainiar** bakoitzak banku eta kutxekin. Berria - Ekonomia

Rifeko menditarrek K.o. 1921ean Annualeko hondamendia eragin zieten **espainiarrei**. Iñaki Mendiguren

Halako **espainiar** kementsu haiek, Pedro Barbak eta Gutierre Kijadak Borgoña aldean burutu zituzten ekintzak eta elkar jokoak. Patxi Ezkiaga

125c.c.-etan Lorenzo **espainiar** gazteak lortu du denborarik onena. Berria - Kirola

-Ez niri agindurik eman, **espainiar** alu horrek! -erran zuen marmarka. Alberto Ladron Arana

Lagun iezaguzue, arren, zuek bezalakoak gara, katolikoak, zibilizatuak, ordenaren maitaleak, europarrak... odol nahasiko **espainiar** beltz horiek ez bezalakoak. Alberto Ladron Arana

Espainiar zenbaiten aldetik beren nazioaren lorietakoa omen den zubigintzagaz jardutetik dator. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat espainiar (3); **beste espainiar** (3); **bi espainiar** (4); **da espainiar** (4); **du espainiar** (3); **dute espainiar** (4); **edo espainiar** (5); **espainiar agenteak** (3); **espainiar asko** (3); **espainiar bandera** (3); **espainiar bat** (11); **espainiar batek** (12); **espainiar batekin** (4); **espainiar baten** (4); **espainiar edo** (6); **espainiar epaile** (3); **espainiar epaile batek** (3); **espainiar estatua** (8); **espainiar estatuak** (4); **espainiar estatuan** (7); **espainiar estatuaren** (14); **espainiar estatuaren beste** (5); **espainiar estatuari** (8); **espainiar statuen** (5); **espainiar estatuko** (3); **espainiar eta** (22); **espainiar eta frantziar** (8); **espainiar eta portugaldar** (3); **espainiar ezaguna** (4); **espainiar faxisten** (3); **espainiar gizarteak** (3); **espainiar gobernuaren** (3); **espainiar gobernuen** (3); **espainiar guztiak** (3); **espainiar guztiek** (11); **espainiar guztien** (14); **espainiar guztientzat** (3); **espainiar herritartasuna** (6); **espainiar inposaketari** (3); **espainiar inposaketari ez** (3); **espainiar konstituzioaren** (4); **espainiar ministroak** (3); **espainiar nazionalismoaren** (4); **espainiar zein** (4)

agente espainiarra (5); **agente espainiarrak** (6); **alboko espainiarra** (5); **alejandro valverde espainiarra** (7); **alonso espainiarra** (5); **atzelari espainiarrak** (4); **baina espainiarrak** (4); **bandera espainiarra** (3); **carlos ferrero espainiarrak** (3); **carlos sainz espainiarra** (6); **carlos sainz espainiarrak** (4); **carlos sastre espainiarrak** (3); **da espainiarra** (4); **du espainiarrak** (7); **entrenatzaile espainiarrak** (5); **eskuin hegaleko espainiarra** (4); **espainiarra da** (14); **espainiarra ere** (6); **espainiarra eta** (20); **espainiarra fitxatu** (4); **espainiarra fitxatu du** (3); **espainiarra izan** (6); **espainiarra izan zen** (3); **espainiarra nagusitu** (4); **espainiarra nagusitu zen** (4); **espainiarra naiz** (4); **espainiarra zara** (3); **espainiarra zela** (3); **espainiarra zen** (5); **estatu espainiar** (7); **estatu espainiar eta** (3); **estatu espainiar zein** (3); **estatu espainiarra** (8); **eta espainiar** (44); **eta espainiar estatuen** (5); **eta espainiarra** (5); **euskal eta espainiar** (5); **ezker alboko espainiarra** (3); **fernando alonso espainiarra** (4); **frantses eta espainiar** (8); **frantziar eta espainiar** (4); **freire espainiarra** (7); **galeoi espainiar** (4); **gripe espainiarra** (4); **gutierrez espainiarra** (3); **hegaleko espainiarra** (5); **hori espainiarra** (3); **jokalari espainiarra** (3); **kapitain espainiar** (3); **nazionalista espainiarra** (3); **oscar freire espainiarra** (6); **polizia espainiar** (3); **sainz espainiarra** (6); **soldadu espainiar** (6); **txirrindulari espainiarra** (5); **valverde espainiarra** (7); **zituen espainiar** (3); **zuen espainiar** (4)

agente espainiarraren (3); **da espainiarrek** (4); **da espainiarren** (3); **espainiarrak bere** (3); **espainiarrak dira** (4); **espainiarrak edo** (4); **espainiarrak ere** (6); **espainiarrak eta** (21); **espainiarrak eta frantziarrak** (4); **espainiarrak ez** (9); **espainiarrak irabazi** (24); **espainiarrak irabazi du** (6); **espainiarrak irabazi zuen** (17); **espainiarrak izan** (3); **espainiarrak saunier** (3); **espainiarrak saunier duval** (3); **espainiarraren esku** (4); **espainiarraren eta** (5); **espainiarrei eta** (4); **espainiarrek eta** (5); **espainiarrek ez** (9); **espainiarrek ez zuten** (3); **espainiarren alde** (3); **espainiarren artean** (8); **espainiarren arteko** (9); **espainiarren aurka** (3); **espainiarren esku** (3); **espainiarren eta** (4); **espainiarren gehiengoak** (3); **espainiarren interesak** (3); **estatu espainiarrak** (11); **estatu espainiarrak eta** (4); **estatu espainiarrarekin** (3); **estatu espainiarraren** (11); **estatu espainiarraren eta** (3); **estatu espainiarrean** (5); **estatu espainiarreko** (7); **eta espainiarrak** (15); **eta espainiarrek** (11); **eta espainiarren** (13); **eta espainiarren arteko** (4); **eta estatu espainiarraren** (3); **ferrero espainiarrak** (3); **frantsesak eta espainiarrak** (3); **freire espainiarrak** (6); **freire espainiarrak irabazi** (3); **freire espainiarrari** (3); **gutierrez espainiarrak** (4); **komisario espainiarrak** (3); **martin perdiguero espainiarrak** (3); **oscar freire espainiarrak** (6); **perdiguero espainiarrak** (3); **sainz espainiarrak** (4); **sastre espainiarrak** (3); **soldadu espainiarrak** (3); **soldadu espainiarren** (7); **talde espainiarrak** (3); **txirrindulari espainiarrak** (6); **ziren espainiarrak** (4); **zuen espainiarrak** (5); **zuten espainiarrek** (3); **zuzendari espainiarrak** (5)

bere burua espainiartzat (3); **burua espainiartzat** (3)

---

espainiaratu, espainiara(tu), espainiaratzen *(orobat **espainaratu** g.er.)* da/du *ad* Espainiara joan, Espainiara eraman.

Espainiaratu ginen armakide taldeko guztiok, badaezpada ere, abizena aldatu genuen, balizko atxiloketa edo erbesteratzea saihesteko. Alberto Ladron Arana

Mexikon dituzten sei euskal presoak **Espainiaratzea** ebatzi du auzitegiak. Berria - Euskal Herria

Jon Lopez ez **Espainiaratzea** erabaki dute, tortura arriskuagatik. Berria - Euskal Herria

Errefuxiatua **Espainiaratzeko** eskaera Garzonek egin zuen. Berria - Euskal Herria

Txibite **Espainiaratzeko** euroagindua indarrean jarri du Frantziak. Berria - Euskal Herria

Frantzia kondenatua izan da preso bat legez kanpo **Espainiaratzeagatik**. Berria - Euskal Herria

---

espainiaratze *(orobat **espainaratze** g.er.)* da/du *ad* Espainiara joatea, Espainiara eramatea.

Leiendak eta mirakuiluek erakutsi nahi digute Santiagoren **Espainiaratzea**, Karlomagnoren epopeia eta Errekonkistaren historia bat datozela. Piarres Aintziart

Espainiaratzeak ekarri zion kafearekiko zaletasuna. Lutxo Egia

Abokatuek jarritako helegiteari erantzunez, Versailleseko Administrazio Auzitegiak **Espainiaratze** agindua bertan behera utzi zuen 2000ko irailean, «estradizio mozorrotua» zenez legez kanpokoa zela argudiatuta. Berria - Euskal Herria

Paueko auzitegiak onartu du joanden astean bi euskaldunen **Espainaratzea**, beti euro agindua dela eta. Herria

---

espainiarkeria *iz* espainiar izaera puzten eta desitxuratzen duen gauza.

Zer **espainiarkeria** ez ote zizkion aholkatuko hautapen horrek Maurice Barrès-i edo Rodríguez Larreta doktoreari! Juan Garzia

espainiartasun *iz* espainiar izateko nolakotasuna.

Antso Nagusiaren gaia jorratu zen iaz Lizarran, eta horixe izan zen Nafarroako Gobernuak egin zuen lehen keinua, erregearen **espainiartasuna** errebindikatu eta aldarrikatzearen alde. Berria - Kultura

Don Jaimek blai jarri nahi omen dik bere burua **espainiartasunez**. Txillardegi

Euskal Herri kulturalaren antolaketa politikoa batzuek euskaltasunaren **espainiartasunetik** eta beste batzuek euskaltasunaren euskalduntasunetik abiatuta egin gura dutela. Berria - Euskal Herria

---

espainiartze *iz* espainiar bihurtzea.

Don Carlosek ez zuen Euskal Herria **espainiartzea** proposatzen, alderantziz beste hau baizik: Espainiako probintziak oro, "Laurak Bat" osatzen dutenen bidetik lerrotzea. Txillardegi

ERCko militante eta boto emaileen artean ere egonezina hedatu da, mossoak hainbat arinen hedatzeak Kataluniako Poliziaren areago **espainiartzea** ekarriko duela ikusi baitute. Berria - Mundua

---

espainiarzale *izond* espainolista.

Espainiarzaleok hasieratik baliatu behar genuen euskal abertzaletasunaren aukera hau, lehen aldiz estatu propioari muzin egiten baitio, espainiar estatuaren mesedetan. Berria - Harian

Lehengoan Carlos Davila kazetari **espainiarzale** sutsuak elkarrizketa egin zion Iruretari, eta, espero zen bezala, Espainiako selekzioaz eta «autonomikoen» zentzuaz galdetu zion. Berria - Kirola

---

espainiazale *(orobat **espainazale** g.er.)* *izond* **1** Espainiaren zalea dena.

Bilbotar erdaldun euskaltzale batek, kasu, "País Vasco" edo "País" esango du, eta batzuetan, zenbait girotan, "Euskadi" edo "Euskal Herria". Vitoria-Gasteizeko politikari **espainiazale** batek ez ditu, ordea, azkeneko bi izenok erabiliko, ezta, agian, "País" soila ere; horren ordez "nuestra tierra", "tierra vasca" esango du beti. Bernardo Atxaga

Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde aberatsenetan eta alderdi **espainiazale** eskuindar edo ezkertiarren artetik egin zuen lehen agerraldia Jelzale alderdiak eta, laster, hor berean erdietsi zituen bere lehen hautetsiak. Piarres Xarriton

Beatriz oso neska konbentzionala zen -berehala igartzen zitzaion-, kontserbatzailea, eskuinekoa, **espainiazalea**. Iban Zaldua

2 (izen gisa) Espainiaren zalea den pertsona.

Ez daitezela tronpa **Espainiazaleak** eta autonomiazaleak ere, gure herria zatitzen duen autonomiaren kudeatzaileak beharbada. Berria - Euskal Herria

---

espainiera *(orobat **espainera** g.er.)* *iz* Espainiako hizkuntza ofiziala.

Espainiera atzerriko da hemen, frantsesa bezala. Koldo Izagirre

Pierre Menard-ek prozedura hori aztertu zuen (badakit, esate baterako, XVII. mendeko **espainiera** nahikoa taxuz erabiltzera iritsi zela). Juan Garzia

Espainiera eta korearra entzuten zituen, errusiera eta txinatarra, arabiera eta greziera, japoniera, alemana, eta frantsesa, baina beldurtu edo harritu ordez, bozkariatu egiten zen giza hotsen dibertsitate horrekin. baina errazegitzat baztertu zuen. Oskar Arana

Parisko laguna zuen, udan lan pixka bat eginez **espainiera** ikastera etorria. Juan Kruz Igerabide

Iruñerri osoan, bide seinaleetan bakarrik **espainiera** erabiliko zela onetsi zuen. Berria - Euskal Herria

"Isla de Luzon" deletreatu zuen doker zaharrak **espainiera** txukunean zure aldamenean, largabista bafore sabelandi bati noratua. Koldo Izagirre

Guregana hurbildu zen eta, **espainiera** bikainean, Suedian iheslari moduan ondo hartu gintuzten galdetu zigun. Berria - Mundua

Ni nintzen **espainiera** ez zen hizkuntzan aritzen zen bakarra. Andoni Egaña

Eden distiratsu ttipi hau *Pasages* da **espainieraz** eta *Le Passage* frantsesez. Agustin Otsoa

Ume nintzela, eskolan erabiltzen ziren Errepublika garaiko liburuetan, azkeneko partean, euskara **espainiera** hiztegia zegoen. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dena espainieraz (4); **espainiera eta** (10); **espainieratik euskarara** (3); **espainieraz egin** (5); **espainieraz egiten** (7); **espainieraz egiten da** (3); **espainieraz eta** (9); **espainieraz eta frantsesez** (3); **espainieraz ez** (3); **espainieraz hitz** (4); **espainieraz jartzea** (3); **eta espainiera** (9); **eta espainiera eta** (3); **eta espainieraren** (3); **eta espainieraz** (4); **ez espainieraz** (3)

---

espainiol ik **espainol**.

---

espainiratu, espainiara(tu), espainaratzen *(orobat **espainaratu** g.er.)* da/du *ad* Espaniara joan; Espainiara eraman.

Espainiaratu ginen armakide taldeko guztiok, badaezpada ere, abizena aldatu genuen, balizko atxiloketa edo erbesteratzea saihesteko. Alberto Ladron Arana

Joanden astean Quebec-etik, bere agurrarekin batera, ageri bat helarazi dauku, jakinarazteko bi euskaldun gazte egoera kaxkarrean zaudela han gaindi, **Espainiaratuak** izaiteko bezperan. Herria

Lapurdiko hainbat herritan atxilotu zituzten lauak, eta euroagindu bidez **Espainiaratu**. Berria - Euskal Herria

Gero erranen dugu nola zen **Espainiaratu**. Herria

Lau urteko espetxe zigorra beteta **Espainiaratu** dute eta, berez, ezin dute delitu beragatik birritan epaitu. Berria - Euskal Herria

Frantziak ez ditu **Espainiaratuko** Amaia Rekarte, Yves Matxikote eta Haritza Galarraga Segiko hiru kide lapurtarrak. Berria - Euskal Herria

---

espainitate *iz adkor*

1927an Hendaian dago, Primo de Rivera-ren ihesi "desterruan", Espainiara begira, hispanitateaz meditatzen (hispanitate hau **Espainitatea** soil da, Latinoamerika gabe). Joxe Azurmendi

---

espainizale ik **espainiazale**.

---

espainol *(orobat **espainiol** g.er., **espanol** g.er., **español** g.er., **españul** g.er. eta **espaiñol** g.er.) iz* **1** espainiarra.

Doinu arrotzari ohartuta, **espainola** ote den galdegin diote mesfidati. Aingeru Epaltza

Berriz ere **espainolak** ez ote dira frantsesei jarraitzen ari? Joxe Azurmendi

Espainolek eta nafar arnegatuek hurrengo urteko udaberriaren bukaeran jo zuten kontraerasoa. Aingeru Epaltza

Antigoala, monarkikoa eta **espainola** da Realaren izena eta badu garaia aldatzeko. Berria - Kirola

Letra odolarekin sarrarazten zuen eskolan, beste ebidentzia batzuk ikasarazi zizkizuten: **espainola** zarela, munduan gauza bikainagorik ez dagoela **espainola** izatea baino, espainiera dela mintzaira guztietan ederrena, eta "Gibraltar, Gibraltar". Joxe Azurmendi

Alde batetik **espainol** autentikoak daude, 'España una, grande y libre' diotenak, eta, beste aldetik, konpartsak daude; zerbaiten truke zer lor dezaketen borrokan dabiltzanak». Berria - Euskal Herria

ETAk Zarautzen hil zuen Jose Inazio Iruretagoiena zinegotzia euskalduna zen, **espainol** sentitzen zen euskaraduna. Iñigo Aranbarri

Galdegiozu, poliziak "xxxx" orruka torturatu zuenari, ea **espainola** sentitzen al duen bere burua. Joxe Azurmendi

Luzagabe, armadako konpainia bat etorriko zaik hara, **espainolen** hara-honen kontrolatzeko. Elena Touyarou

Espainol onak hau eta hori izan behar du. Joxe Azurmendi

Maimonides, etab., eta batez ere Luis Vives, **espainol** oso-osoak dira. Joxe Azurmendi

2 (izenondo gisa)

Pio V.ak bazuen xedea bi kardinale frantses eta bi kardinale **espainol** izendatzeko, hots, Carranzaren jujea izan zen Sevillako artzapezpikua eta Azpilkueta. Piarres Xarriton

Militarrez jantzitako soldadu **espainol** aldra bat sartu da elizara. Txillardegi

Pidal omen da nazio **espainolaren** teoriko liberal handia. Joxe Azurmendi

Estatu **espainol** eta frantsesaren errepresio eta ilegalizazio dinamikaren porrota irudikatuko dugu Euskal Herriko kaleetan. Berria - Harian

Gerra hori herri **espainol** heroikoaren pizkunde eta garaipenarena da. Joxe Azurmendi

Ortega-ren akatsa da [...] gizaki germaniarrean bilatzea gizaki **espainolarentzako** soluzioa. Zamaria ofizial **espainol** batena zen. Joxe Azurmendi

Liberal **espainolek**, liberalak omen diren arren, usteonik batere ez dute herrian. Joxe Azurmendi

Pentsamendu **espainol** nazional eta original baten patriotak ez bide dira Menéndez Pelayo edo Unamuno bezalako kontserbazale angustiatuak bakarrik. Joxe Azurmendi

Antropologiaren moda edo "zientzia" berriak, nazionalismo periferikoak deituetan influentzia izan duen modu berean (Almirall, Arana Gori), nazionalismo **espainolaren** formulazioetan ere izan duela. Joxe Azurmendi

Herriaren arima **espainola** handia eta jaukala da, eta erromantze **espainol** jatorra ere ezin da Lope edo Góngora-rena baino gutxiago noblea izan. Joxe Azurmendi

Hiztegi **espainola** begiratu, eta berdin: [...]. Patziku Perurena

Ortodoxia **espainolaren** maisua Sene-ka bezala, heterodoxia **espainola** panteismoan laburbiltzen da, horren maisu handiak Averroes eta Maimonides ei dira. Joxe Azurmendi

Telebisio **espainoleko** kultur leihaketa txoro horien gisara. Patziku Perurena

Zein "ezinbesteko" identitate **espainol** da hori? Joxe Azurmendi

Independentzia Gerra zuntzun bat Frantzia aliatuaren aurka, eta tonaka eta tonaka zientzia **espainola**. Joxe Azurmendi

Kredo patriotiko **espainol** hori, edozein toki eta eretitan errezatzeko prest. Joxe Azurmendi

Erromantzero **espainola** partikularki aberatsa da eta kalitate bikainekoa. Joxe Azurmendi

Aspaldi handian, ohitura **espainol** zahar bati jarraiki, zenbait kondenatzailek ez du aski berak kondenatzea. Markos Zapiain

3 (izenlagun gisa)

Benta ez zen nehoren lurretan ezen nehork ez zezakeen erran segurki frantses lurretan edo **espainol** lurretan zen. Elena Touyarou

Espainol armada ingurune hurbilean kokatua zen, frantses eremuan sartzeko asmoz eta nehork ez zekien xuxen zer gertatuko zen epe laburrean. Elena Touyarou

Aurrez aurre nuen **espainol** ordezkaritzan Racla deitu aholkularia, arrunt puntalakurloa, formalista, bihurria eta jukutrilaria. Michel Oronoz

Angel Acebes **espainol** barne-ministroak auzitegirat deitarazi ditu Martxelo Otamendi, Iñaki Uria, Xabier Alegria eta Xabier Oleaga, tortura salaketak egin dituztelakotz. Herria

Hondarribiko David de Jorge sukaldaria, bi urtez **espainol** estatuko sukaldari hoberenaren saria eskuratua duena. Herria

Espainol gobernuak Madrilgo Atocha geltokian gertatu hori salatuz, Aznar bera aitzindari, deitu zuen bere herri guzia manifestaldi haundi batetara terrorismoaren kontra eta bakearen alde bixtan dena. Herria

Frantses eta **espainol** polizien artean kudeatu herioaren eskadroia zen TKA, bi estatuek Euskal Herria hertsatzen zutelako marka argiena. Itxaro Borda

Gainera, arrazoi zuten **espainol** jaunttoek. Ramuntxo Etxeberri

Bera herrian finkatu **espainol** gudariek lekuak hustu zituzten eta frantsesak sartu ziren. Elena Touyarou

Ez zuten nahi gorteko inork ikus zezan beren kontesta irmoan errege bidezkoenganako etsaigorik, are gutiago **espainol** etsaiarenganako adiskidetasunik. Aingeru Epaltza

Batasuna alderdi politikoa kanpo uzteko **espainol** legearen salatzeko ekainaren 15eko Bilboko manifestaldian zegoen Xabier Arzallus EAJko buruzagia, ez ustean. Itxaro Borda

4 espainiera.

Txosten eta argitalpen guztiak egiten dituzte **espainol** hutsean. Hasier Etxeberria

Antolatzaileen artean bat bera ere ez zegoen euskaraz zekienik eta argitalpen guztiak, **espainol** eta frantses hutsez argitaratu dituzte. Hasier Etxeberria

ETB1 kiroletan batere lotsarik gabe **espainolez** elkarrizketak egiten, eta itzuli gabe gainera (Baigorriko, Mauleko, Hazparneko denek **espainolez** ere badakitelakoan). Berria - Kirola

-Zaila! -pentsatu du, italiera, frantsesa eta **espainola** ikasteko erosi zituen beste gramatika elkarren oso antzekoak gogoan. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arima espainol (6); **arima espainola** (16); **arima espainolaren** (27); **arraza espainol** (5); **arraza espainola** (7); **arraza espainolak** (5); **arraza espainolaren** (7); **bandera espainola** (3); **bat espainolez** (4); **da espainol** (3); **da espainola** (4); **edo arima espainola** (4); **edo espainol** (11); **edo espainolez** (3); **espainol bat** (9); **espainol batek** (5); **espainol edo** (7); **espainol edo frantses** (3); **espainol estadoan** (3); **espainol estatuetako** (3); **espainol estatuko** (4); **espainol eta** (14); **espainol eta frantses** (5); **espainol gobernuak** (5); **espainol gobernuaren** (3); **espainol hori** (6); **espainol jatorra** (7); **espainola da** (9); **espainola edo** (4); **espainola ere** (3); **espainola eta** (15); **espainola eta euskara** (3); **espainola ez** (11); **espainola izan** (10); **espainola izatea** (4); **espainola ulertu** (5); **espainola zara** (3); **espainola zara ala** (3); **espainola zela** (3); **espainolak baino** (3); **espainolak dira** (3); **espainolak eta** (11); **espainolak eta euskaldunak** (3); **espainolak ez** (9); **espainolak ez du** (4); **espainolaren esentzia** (3); **espainolaren espresio** (4); **espainolaren eta** (3); **espainolaren ezagupen** (3); **espainolaren ezagupen ona** (3); **espainolaren historia** (3); **espainolaren izpiritu** (3); **espainolaren polemika** (3); **espainolek eta** (7); **espainolek eta frantsesek** (3); **espainolek ez** (3); **espainolen artean** (4); **espainolen kontra** (4); **espainolez ere** (3); **espainolez eta** (10); **espainolez eta frantsesez** (4); **espainolez hitz** (4); **espainolez hitz egiten** (4); **espainolez mintzo** (6); **estatu espainol** (4); **estatu espainolak** (7); **estatu espainolaren** (8); **estatu espainolean** (3); **eta espainol** (20); **eta espainol estatuetako** (3); **eta espainola** (25); **eta espainola ulertu** (4); **eta espainolak** (10); **eta espainolaren** (3); **eta espainolek** (4); **eta espainolen** (4); **eta espainolez** (14); **ez espainolak** (4); **ez naiz espainola** (3); **frantses edo espainol** (9); **frantses eta espainol** (10); **frantsesa eta espainola** (9); **frantsesez eta espainolez** (5); **herri espainol** (3); **herri espainola** (3); **historia espainol** (3); **historia espainolaren** (4); **hizkuntza espainolaren** (3); **inglesez eta espainolez** (3); **izpiritu espainol** (7); **izpiritu espainola** (8); **izpiritu espainolaren** (10); **jeinu espainolaren** (6); **naiz espainola** (4); **nazio espainola** (3); **nazio espainolaren** (6); **nazional espainolaren** (4); **oso espainola** (3); **pentsamendu espainol** (4); **polizia espainolak** (3); **volksgeist espainola** (8); **volksgeist espainolaren** (8); **zientzia espainolaren** (6); **zientzia espainolaren polemika** (3); **zituzten espainolek** (3); **zu espainola** (3); **zu espainola zara** (3)

---

espainol *(orobat **espainiol** g.er., **espanol** g.er., **español** g.er., **españul** g.er. eta **espaiñol** g.er.) iz* **1** espainiarra.

Doinu arrotzari ohartuta, **espainola** ote den galdegin diote mesfidati. Aingeru Epaltza

Berriz ere **espainolak** ez ote dira frantsesei jarraitzen ari? Joxe Azurmendi

Espainolek eta nafar arnegatuek hurrengo urteko udaberriaren bukaeran jo zuten kontraerasoa. Aingeru Epaltza

Antigoala, monarkikoa eta **espainola** da Realaren izena eta badu garaia aldatzeko. Berria - Kirola

Letra odolarekin sarrarazten zuen eskolan, beste ebidentzia batzuk ikasarazi zizkizuten: **espainola** zarela, munduan gauza bikainagorik ez dagoela **espainola** izatea baino, espainiera dela mintzaira guztietan ederrena, eta "Gibraltar, Gibraltar". Joxe Azurmendi

Alde batetik **espainol** autentikoak daude, 'España una, grande y libre' diotenak, eta, beste aldetik, konpartsak daude; zerbaiten truke zer lor dezaketen borrokan dabiltzanak». Berria - Euskal Herria

ETAk Zarautzen hil zuen Jose Inazio Iruretagoiena zinegotzia euskalduna zen, **espainol** sentitzen zen euskaraduna. Iñigo Aranbarri

Galdegiozu, poliziak "xxxx" orruka torturatu zuenari, ea **espainola** sentitzen al duen bere burua. Joxe Azurmendi

Luzagabe, armadako konpainia bat etorriko zaik hara, **espainolen** hara-honen kontrolatzeko. Elena Touyarou

Espainol onak hau eta hori izan behar du. Joxe Azurmendi

Maimonides, etab., eta batez ere Luis Vives, **espainol** oso-osoak dira. Joxe Azurmendi

2 (izenondo gisa)

Pio V.ak bazuen xedea bi kardinale frantses eta bi kardinale **espainol** izendatzeko, hots, Carranzaren jujea izan zen Sevillako artzapezpikua eta Azpilkueta. Piarres Xarriton

Militarrez jantzitako soldadu **espainol** aldra bat sartu da elizara. Txillardegi

Pidal omen da nazio **espainolaren** teoriko liberal handia. Joxe Azurmendi

Estatu **espainol** eta frantsesaren errepresio eta ilegalizazio dinamikaren porrota irudikatuko dugu Euskal Herriko kaleetan. Berria - Harian

Gerra hori herri **espainol** heroikoaren pizkunde eta garaipenarena da. Joxe Azurmendi

Ortega-ren akatsa da [...] gizaki germaniarrean bilatzea gizaki **espainolarentzako** soluzioa. Zamaria ofizial **espainol** batena zen. Joxe Azurmendi

Liberal **espainolek**, liberalak omen diren arren, usteonik batere ez dute herrian. Joxe Azurmendi

Pentsamendu **espainol** nazional eta original baten patriotak ez bide dira Menéndez Pelayo edo Unamuno bezalako kontserbazale angustiatuak bakarrik. Joxe Azurmendi

Antropologiaren moda edo "zientzia" berriak, nazionalismo periferikoak deituetan influentzia izan duen modu berean (Almirall, Arana Gori), nazionalismo **espainolaren** formulazioetan ere izan duela. Joxe Azurmendi

Herriaren arima **espainola** handia eta jaukala da, eta erromantze **espainol** jatorra ere ezin da Lope edo Góngora-rena baino gutxiago noblea izan. Joxe Azurmendi

Hiztegi **espainola** begiratu, eta berdin: [...]. Patziku Perurena

Ortodoxia **espainolaren** maisua Sene-ka bezala, heterodoxia **espainola** panteismoan laburbiltzen da, horren maisu handiak Averroes eta Maimonides ei dira. Joxe Azurmendi

Telebisio **espainoleko** kultur leihaketa txoro horien gisara. Patziku Perurena

Zein "ezinbesteko" identitate **espainol** da hori? Joxe Azurmendi

Independentzia Gerra zuntzun bat Frantzia aliatuaren aurka, eta tonaka eta tonaka zientzia **espainola**. Joxe Azurmendi

Kredo patriotiko **espainol** hori, edozein toki eta eretitan errezatzeko prest. Joxe Azurmendi

Erromantzero **espainola** partikularki aberatsa da eta kalitate bikainekoa. Joxe Azurmendi

Aspaldi handian, ohitura **espainol** zahar bati jarraiki, zenbait kondenatzailek ez du aski berak kondenatzea. Markos Zapiain

3 (izenlagun gisa)

Benta ez zen nehoren lurretan ezen nehork ez zezakeen erran segurki frantses lurretan edo **espainol** lurretan zen. Elena Touyarou

Espainol armada ingurune hurbilean kokatua zen, frantses eremuan sartzeko asmoz eta nehork ez zekien xuxen zer gertatuko zen epe laburrean. Elena Touyarou

Aurrez aurre nuen **espainol** ordezkaritzan Racla deitu aholkularia, arrunt puntalakurloa, formalista, bihurria eta jukutrilaria. Michel Oronoz

Angel Acebes **espainol** barne-ministroak auzitegirat deitarazi ditu Martxelo Otamendi, Iñaki Uria, Xabier Alegria eta Xabier Oleaga, tortura salaketak egin dituztelakotz. Herria

Hondarribiko David de Jorge sukaldaria, bi urtez **espainol** estatuko sukaldari hoberenaren saria eskuratua duena. Herria

Espainol gobernuak Madrilgo Atocha geltokian gertatu hori salatuz, Aznar bera aitzindari, deitu zuen bere herri guzia manifestaldi haundi batetara terrorismoaren kontra eta bakearen alde bixtan dena. Herria

Frantses eta **espainol** polizien artean kudeatu herioaren eskadroia zen TKA, bi estatuek Euskal Herria hertsatzen zutelako marka argiena. Itxaro Borda

Gainera, arrazoi zuten **espainol** jaunttoek. Ramuntxo Etxeberri

Bera herrian finkatu **espainol** gudariek lekuak hustu zituzten eta frantsesak sartu ziren. Elena Touyarou

Ez zuten nahi gorteko inork ikus zezan beren kontesta irmoan errege bidezkoenganako etsaigorik, are gutiago **espainol** etsaiarenganako adiskidetasunik. Aingeru Epaltza

Batasuna alderdi politikoa kanpo uzteko **espainol** legearen salatzeko ekainaren 15eko Bilboko manifestaldian zegoen Xabier Arzallus EAJko buruzagia, ez ustean. Itxaro Borda

4 espainiera.

Txosten eta argitalpen guztiak egiten dituzte **espainol** hutsean. Hasier Etxeberria

Antolatzaileen artean bat bera ere ez zegoen euskaraz zekienik eta argitalpen guztiak, **espainol** eta frantses hutsez argitaratu dituzte. Hasier Etxeberria

ETB1 kiroletan batere lotsarik gabe **espainolez** elkarrizketak egiten, eta itzuli gabe gainera (Baigorriko, Mauleko, Hazparneko denek **espainolez** ere badakitelakoan). Berria - Kirola

-Zaila! -pentsatu du, italiera, frantsesa eta **espainola** ikasteko erosi zituen beste gramatika elkarren oso antzekoak gogoan. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arima espainol (6); **arima espainola** (16); **arima espainolaren** (27); **arraza espainol** (5); **arraza espainola** (7); **arraza espainolak** (5); **arraza espainolaren** (7); **bandera espainola** (3); **bat espainolez** (4); **da espainol** (3); **da espainola** (4); **edo arima espainola** (4); **edo espainol** (11); **edo espainolez** (3); **espainol bat** (9); **espainol batek** (5); **espainol edo** (7); **espainol edo frantses** (3); **espainol estadoan** (3); **espainol estatuetako** (3); **espainol estatuko** (4); **espainol eta** (14); **espainol eta frantses** (5); **espainol gobernuak** (5); **espainol gobernuaren** (3); **espainol hori** (6); **espainol jatorra** (7); **espainola da** (9); **espainola edo** (4); **espainola ere** (3); **espainola eta** (15); **espainola eta euskara** (3); **espainola ez** (11); **espainola izan** (10); **espainola izatea** (4); **espainola ulertu** (5); **espainola zara** (3); **espainola zara ala** (3); **espainola zela** (3); **espainolak baino** (3); **espainolak dira** (3); **espainolak eta** (11); **espainolak eta euskaldunak** (3); **espainolak ez** (9); **espainolak ez du** (4); **espainolaren esentzia** (3); **espainolaren espresio** (4); **espainolaren eta** (3); **espainolaren ezagupen** (3); **espainolaren ezagupen ona** (3); **espainolaren historia** (3); **espainolaren izpiritu** (3); **espainolaren polemika** (3); **espainolek eta** (7); **espainolek eta frantsesek** (3); **espainolek ez** (3); **espainolen artean** (4); **espainolen kontra** (4); **espainolez ere** (3); **espainolez eta** (10); **espainolez eta frantsesez** (4); **espainolez hitz** (4); **espainolez hitz egiten** (4); **espainolez mintzo** (6); **estatu espainol** (4); **estatu espainolak** (7); **estatu espainolaren** (8); **estatu espainolean** (3); **eta espainol** (20); **eta espainol estatuetako** (3); **eta espainola** (25); **eta espainola ulertu** (4); **eta espainolak** (10); **eta espainolaren** (3); **eta espainolek** (4); **eta espainolen** (4); **eta espainolez** (14); **ez espainolak** (4); **ez naiz espainola** (3); **frantses edo espainol** (9); **frantses eta espainol** (10); **frantsesa eta espainola** (9); **frantsesez eta espainolez** (5); **herri espainol** (3); **herri espainola** (3); **historia espainol** (3); **historia espainolaren** (4); **hizkuntza espainolaren** (3); **inglesez eta espainolez** (3); **izpiritu espainol** (7); **izpiritu espainola** (8); **izpiritu espainolaren** (10); **jeinu espainolaren** (6); **naiz espainola** (4); **nazio espainola** (3); **nazio espainolaren** (6); **nazional espainolaren** (4); **oso espainola** (3); **pentsamendu espainol** (4); **polizia espainolak** (3); **volksgeist espainola** (8); **volksgeist espainolaren** (8); **zientzia espainolaren** (6); **zientzia espainolaren polemika** (3); **zituzten espainolek** (3); **zu espainola** (3); **zu espainola zara** (3)

---

espainolada *iz* espainolkeria.

Espainolada bat botzen ditek. Koldo Izagirre

---

espainoldu, espainol(du), espainoltzen *(orobat **españoldu** g.er.)* du *ad* espainol bihurtu.

Are, euskaldunek euskara baztertu eta osoki **espainoldu** beharra arrazoitzen da, esate baterako, elebitasuna ere praktikan ez omen delako posible. Joxe Azurmendi

Barrankako zenbait eskekanta **espainoltzean** J.M. Satrustegik: [...]. Patziku Perurena

Unamuno-ren interesa erremarkatzeko **espainoltzearen** zentzua gizadigintza batena dela (alegia, **espainoltzea** , barne-barnenean, ez dela **espainoltzea**): [...]; eta, bigarren, **espainoltze** librea izan behar duela, ez Estatuak behartua. Joxe Azurmendi

Bertzeak hilak edo [...] beren herri **espainolduetara** itzuliak ziren, ahalkeaz, ohoreaz eta erregerekiko obligazioez bertze eginik. Aingeru Epaltza

Aipatuko diren gaietan, nola gero eta gehiago kulturaren aldetik **"españoltzen"** ari diren Ipar-Ameriketako eskualde batzu... Herria

· Patxi Altunak latinetik **espainoldua** duzu dokumentua. Patziku Perurena

---

espainolismo *(orobat **españolismo** g.er.) iz* Espainiaren eta espainolarenganako estimua edo begiramena.

Euskal Herrian badaude espainolista konfesionalak, are euren kredo politikoan artikulu behinena **espainolismoa** dutenak ere. Joxe Azurmendi

EAE-ANV alderdiak «debekua eta zentsura» gaitzetsi ditu, eta **«espainolismoak** eta ultrakonstituzionalismoak euskal kulturari erasotzeko eratua duen gurutzada nazional berriaren» adierazle direla azaldu du. Berria - Kultura

"El fondo de la cuestión" ez zela euskararen izpiritua, hizkuntzarena, hori bere izaeraz beraz kamutsa den ala ez, eta bai bizkaitarrismoaren edo **espainolismoaren** izpiritua. Joxe Azurmendi

Espainolismoaren defendatzaile sutsu eta abertzaletasunaren aurkari amorratu bihurtu da. Xabier Mendiguren Elizegi

Identitatearen arazoak -besteren artean sozialistek, **espainolismoari** atxikiak, ignoratua eta larriagotua- ekarri du nazionalismoa. Joxe Azurmendi

Katalandarren izaera nazionala autoafirmazioan oinarritzen da, gurea anti-**espainolismoan** . Berria - Euskal Herria

---

espainolista *(orobat **españolista** g.er. eta **espanolista** g.er.) iz* **1** espainolismoari dagokiona; Espainiako tradizioen, kulturaren eta Espainiaren batasunaren aldekoa.

Gutarra zen, ez telebistan agertzen ziren alderdi **espainolista** guztiak bezala, eta ezkertiarra, karkaz beteriko PNV hura ez bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Alderdi politiko nazionalistak eta **espainolistak** elkarri mokoka ari ziren azkenaldi hartan. Joxemari Iturralde

Nik uste dut oso jende gutxik jar dezakeela auzitan egia hori, soilik eskuin muturreko **espainolistek** , edo aspaldiko ezker dibinoak, askotan saloiko faxismoan bukatu duenak. Bernardo Atxaga

Lehengo adiskide berberak izan nitian, hala **espainolistak** deiturikoen artean nola abertzaleen artean. Juan Kruz Igerabide

Unamuno **espainolista** porrokatua zen. Joxe Azurmendi

-Hik ez duk hitz egiteko ere eskubiderik, **espainolista** zerria! Juan Kruz Igerabide

Azken hilabeteotan, Batasunatik atera Aralar, bere baitako **espainolisten** eta baskongadisten erruz dudarik ez, irain eta laidoz estalia, berea lantzen saiatzen da. Itxaro Borda

«Espainolistatzat jo gaitzakete sindikatu batzuek», ohartarazi du. Berria - Ekonomia

PNV-tiarrak **españolistak** dituk, eta egiazko abertzaleak gu gituk Herri Batasunekoak. Menane Oxandabaratz

2 (izenondo gisa)

Espainiako Gobernuaren eta alderdi **espainolisten** interesa beti izango da gure batasuna hautsi eta behetik jota negoziatzea. Berria - Euskal Herria

Andres Hurtado hartu zuten banderatzat gerora (oraindik orain) eskuin **espainolistaren** gobernuaren ganbelazale bihurtuta ikusi ditugun batzuek. Josu Zabaleta

EGI gazte erakundeak atzo ohar batean salatu zuen «Estatuko botereek Gasteiz erabili izana kanpaina **espainolista** baten erakusleiho moduan. Berria - Euskal Herria

Hala eta guztiz ere, duela bi urte jazotako itxierak erakutsi zuen bezala, indar **espainolista** amorratuenek ez zuten Egunkaria-k lortutako hori barkatu. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta espainolisten (3)

---

espainolisto *izond adkor*

Paraleloan ordea, abstentziozko espainolista "moderatuon" disgusturako, inkontziente axolagabea bai, baina euskotasun edo euskaltzaletasun kontziente bat ez agresiboa ez da ematen eta ezin da eman (euskaltzaletasun nahiz nazionalismo oportunistak bai, **espainolistoak** bezalaxe), *contradictio in adjecto* da, bere izaeraz beraz errebindikatiboa izan beharra baitauka. Joxe Azurmendi

---

espainolito *iz adkor* espainola.

Espainian larritasun hori 98 ondorengoa bezala jotzen da: Kuba independizatu zenean, **espainolitoek** , Inperioa akabatu zela-eta, mundua akabatu zela, uste zuten. Joxe Azurmendi

---

espainolizatu, espainoliza(tu), espainolizatzen da *ad* espainol bihurtu.

Orain jendeak uste du, hala entzuten baita han eta hemen, PSN **espainolizatu** behar ote den. Berria - Euskal Herria

---

espainolkeria *iz* espainolismo gaitzesgarria.

Batasunak **«espainolkeriaren** goraipatze ekitalditzat» jo ditu herenegungo ospakizunak. Berria - Euskal Herria

Batasunaren arabera, ospakizun horiek guztiak **«espainolkeriaren** goraipatze ekitaldiak» izan ziren. Berria - Euskal Herria

---

espainolketa *iz* espainoltzea.

Espainolketaren apologia mistiko-teologiko honetan, bi puntu daude nabarmenak (gaiaren lehergarritasuna erakusten dutelako): lehena, Unamuno-ren interesa erremarkatzeko espainoltzearen zentzua gizadigintza batena dela [...]. Joxe Azurmendi

---

espainoltasun *(orobat **españoltasun**) iz* espainolismoa.

López-Morillas-ek gogoratzen digu, **espainoltasun** -izpiritu edo jeinu espainol- jatorraren arazo edo lehia hau XVIII. mendetik zetorrela. Joxe Azurmendi

Izpiritu espainolaren senekismo eta Senekaren **espainoltasun** hori, hamaika autore gehiagotan aurki daiteke (Ganivet, etc.). Joxe Azurmendi

Ortega-k literatura espainola irakurri, "lleno de sed de españolismo" irakurtzen zizun, **espainoltasun** bila; [...]; eta filosofia egin ere, Espainiari begira egiten omen zuen.

Munduaz hainbeste dakien egunkarian, idatz lezake kazetari batek dituen datuak izanda, antropologia konparatuaz gain inbasio militarrez, ustiaketa ekonomikoz, menperatze historikoz nahi beste dakien esku batek, "Mahomagatik" (aintzat hartzekoa Morris-en errieta gure **espainoltasunagatik**) eman zaiela su enbaxadei? Joxe Azurmendi

Ohartu naiz gainean eraman ohi dudan agiria iraungia dagoela joan den aspaldian, eta, beraz, daukadan agiri nazional bakarra nere **españoltasun** iraungiaren agiria dela. Iñaki Segurola

---

espainoltxo *izond adkor* espainola, peioratiboki hartua.

Kontua da, intelektual **espainoltxoa** beldur dela, arazoak ez ote duen bera ukitzen. Joxe Azurmendi

---

espainoltze *iz* espainol bihurtzea.

Unamuno-k egin lezakeen guztia, euskaldunen **espainoltzea** apaindurietan estaltzea da. Joxe Azurmendi

Unamuno-ren interesa erremarkatzeko **espainoltzearen** zentzua gizadigintza batena dela (alegia, **espainoltzea**, barne-barnenean, ez dela **espainoltzea**): [...]; eta, bigarren, **espainoltze** librea izan behar duela, ez Estatuak behartua. Joxe Azurmendi

Barrankako zenbait eskekanta **espainoltzean**. Patziku Perurena

---

espainolzale *izond* espainolaren edo espainolen zalea.

Apezek eta **espainolzaleek** hedaturik, aspalditik zebiltzan solas gaiztoak lehenagoko erreginaz -Margarita Angulemakoa, Henrike zenaren emaztea- nahiz Joana tronuratu berriaz. Aingeru Epaltza

Erromako apezpiku **espainolzalearendako** herrak erro barrenak eginik zituen haren baitan, gazte-gazterik Albreten alde egitera deliberatu zenetik. Aingeru Epaltza

---

espaka *adlag* intzirika.

Beti **espaka**! Antton Olano

---

espal *iz ipar* azaoa, bala.

Uda etxen pasatu nuen, lehen bezala belarretan aitama, anai arreba eta mutilarekin, gero arto jorran, eta berantago kapetak mozten, alimaleko **espalak** ezker sorbaldan karreatzen nituela, lorian. Piarres Aintziart

2005/09/24eko larunbatean, ibilkari multzo batek bi lore-**espal** hilen oroitarrian pausatu ditu. Herria

---

espalda *iz* **1** *ipar* bizkarra; besagaina, sorbalda.

LAUAK lantegian 24 urteko gizon gazte batek minartu du **espaldan**, tokian artatua izan da. Herria

Bazoan partida hau ere funski, noiz-eta Heguiabehere lehunztarra ai-eika hasi baita beso **espaldatik**. Herria

Zabaldikan hartzen ahal nuen Narval mendixkaren ezker aldean, **espalda** batean uhal bat dirudiena, ageri zaidan bide gorria, bere paxetekin. Piarres Aintziart

Oraino lehen partida, eskuin **espalda** hura zainduz hasi du baina hobetuz segitzekotan. Herria

Lepotik dilindan urrezko kurutze bat, galtza, galtzerdi beltz batzu, **espalden** gainetik manta labur bat, hoztua balitz bezala. Michel Oronoz

Gaizki abiatuak ziren eta ederki haatik Alfaro eta Heguiabehere, noiz eta **espaldan** zartadura egin baitzaio Alfarori eskuinaldean 23-14etan. Herria

Hunek haga baten bi buruetan bi pegar handi garraiatzen zituen **espalden** gainean. Herria

Eskua Mikelen **espaldan** pausatuz, Ramon jaikitzen da eta lapurtarra kanpora eramaiten du. Ramuntxo Etxeberri

Ateratu nahian, **espalda** kolpe bat ematen dio ateari eta lasterka eskapatzen da. Ramuntxo Etxeberri

2 igeriketa estiloa baten izena ahoz gora egiten dena.

Oso igarilari ona da, estilo guztik dakizkiña: krol, braza, mariposa ta **espalda**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

espaloi *iz* **1** kale, hiribide eta kidekoen bi bazterretako bakoitza, oinezkoak ibil daitezen prestatua dagoena.

Espaloiak zabaldu behar dira, eta hesi arkitektonikoak kendu. Berria - Mundua

Bata **espaloi** batean eta bestea bestean ibiltzen ziren kaleetan aurrera, gora begira. Karlos Zabala

Jendeak beti bezala paseatzen zuen, burgesia **espaloi** batetik eta neskameak, soldaduak eta morroiak bestetik. Mikel Hernandez Abaitua

Atariko eskailerak jautsi eta **espaloian** gelditu nintzen, bekoz beko ateari. Aingeru Epaltza

Abian zela salto egin zuen tranbiatik; bulkada zela eta, urrats txiki-arinetan **espaloiraino** iritsi zen. Lopez de Arana

Orain Madrilgo errebalak dauden lekuan ikusi dut duela hainbat urte jendea ur bila joaten, ez dago **espaloirik**, ez dago porlanik. Harkaitz Cano

Espaloirik gabeko kalera ematen zuen leiho bakarretik begirakunea hartu zuen. Josu Landa

Haren gorputz sendokotearen balantzak jauzi txiki batzuk eginarazi zizkion lagunari **espaloitik** errepidera eta errepidetik **espaloira**. Irene Aldasoro

Bidearen beste **espaloira** joan zen eta emakume adineko bat geldiarazi zuen oihuka. Anjel Lertxundi

Espaloiaren ertzetik tximinia beltzei so egin zieten. Lopez de Arana

Paradis kaleko **espaloiaren** ertzean nago, azken farolaren ondoan. Monika Etxebarria

Ibilbidea iluna zen eta, gabardina barruan kikildu itxura eman arren, erne zihoan **espaloiaren** erdi-erditik. Iñaki Zabaleta

Andre nekazariak Balthazar bridetatik hartu, bultzatu, eta gurdia atzera eraman zuen, gurpilak **espaloiaren** kontra jarri arte. Karlos Zabala

Espaloian aparkatuta zegoen furgoneta, atzeko bi ateak zabalik. Jon Muñoz

Bost gorpuak **espaloian** botata zeuden, eta gaur, ordea, errefau gorri pila bat ikusi uste zuen leku hartan bertan. Karlos Zabala

Itsumustuan, zakur bat irten da ziztu bizian **espaloiko** zabor edukiontzien artetik. Josetxo Azkona

Emakume bat **espaloiko** zoruan etzanik, odola bekokitik dariola, esku bat irekia, bestea poltsa merke bati tinko eutsia, gonak odolez zipriztinduak, hankak zabalduxeak belaunburuen aldean, polizia aleman bat, SSetako bat, **espaloi** erdian barrez, eskuak aldakan. Felipe Juaristi

Ez da ohartu ere egiten **espaloi** gainean uzten ari den odol hariaz. Iñigo Aranbarri

Espaloiko bazter batean, bezero talde handi bat bildu zen aza zopa saltzen zuen baten ingurura. Karlos Zabala

Makurturik jaitsi zen **espaloitik** errepidera, eta aparkaturik zeuden automobiletan babesturik, batez ere gaizki aparkaturiko batean, isilka eta gordeka **espaloian** geldi zegoen tipoaren ondoraino iritsi zen. Migel Angel Mintegi

Espaloian bere albotik pasatzean, argazki bat ateratzeko eskatu zidan makina eskainiz. Bernardo Atxaga

Hiru ordu geroago, Del Vallek Hans begiztatu zuen, urrats astunez **espaloian** aurrera zetorrela. Alberto Ladron Arana

Hipnotizaturik bota zituen argazkiak: ijito pare bat estankotik irteten, jonkia bere existentzia urria **espaloian** behera eramaten, Sierra Leonako ume bat semaforoan geldi.

Unai Iturriaga

Ez orduan, takoien gainean zutun eta pitin bat harro, atzetik begira ninduela jakitun, kafetegiko atetik irten eta **espaloian** barrena galdu zenean. Joxean Agirre

Maletak **espaloira** atera eta ziztu bizian alde egin du nire taxista errusiarrak. Harkaitz Cano

Langileek Navas de Tolosa kalea gurutzatu zuten, trafiko zirkulazioa moztu eta Parlamentuko **espaloian** jarri ziren. Berria - Ekonomia

Zurriolako hiribideko eta Kursaaleko zubiko **espaloietan** bildutako jendetzaren animo oihuak. Berria - Harian

Tarte zuhurra utzirik beste aldeko **espaloitik** segika joan zitzaion emakumeari. Migel Angel Mintegi

"C" bidea jarraitu dute, hein handi batean: Arregi kalea (18:14), Gernika kalea (18:20), San Agustin kalea (18:25), Bergarako Seminarioaren enparantza (18:31), eskuineko **espaloietatik** kasu honetan, salbu eta San Agustin kalea zeharkatzean. Iban Zaldua

Espaloietan bildutako jendea txaloka hasi da. Berria - Harian

Mutikoak hatz mamiz eusten zion txanponari, neskaren aurrean, eta hau **espaloitik** jaitsi zen, oharkabean, sosa hartu nahirik. Karlos Zabala

Espaloietan jendeak bandera amerikarrak harrotzen zituen alegrantziarik handienean. Itxaro Borda

Euren pausoa bizkorra duk, eta **espaloietatik** ez ezik erdigunetik ere saiatzen dituk, autoen artetik ibiliz. Pedro Alberdi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Espaloi bustiek distira egiten zuten. Josu Zabaleta

Espaloi grisean, poltsikoa arakatzen ari zen, billete baten bila. Lopez de Arana

Gero, Pont Neuf eta Halles kale berri zabaletara iristen ziren, eta Claudek bizitza berria zertan zen azaltzen zien bi gazteei: **espaloi** bikainak, etxe garaiak, denden luxua Arrainaren pabiloiaren aurreko **espaloi** zabalean elkarrekin jolasean zebiltzanean, Paulinek gurdiarena egiten zuen. Karlos Zabala

Atzera eta aurrera ibili nintzen **espaloi** estuan. Anjel Lertxundi

Espaloiak oso estuak dira kale arte horretan. Iñaki Iñurrieta

Ahopetik kantari antzean jarraitu zuen **espaloi** txukunean behera, etxe sendo bezain ozta-ozta hondatu batzuk zeharkatuz. Mirentxu Larrañaga

Zutabez eta peristiloz apainduriko etxeak, egurrezko **espaloiak**, karrika zabal erregularrak, hamabost eliza, bikain-bikainak. Karlos Zabala

Zurezko **espaloitik** zihoan dama itxura polit samarreko bati. Jose Morales

Semaforoak geldiarazi zituenerako bidea zeharkatzen hasia zen pareko **espaloiko** mutila. Unai Iturriaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etxeratzerakoan, jabetu zen hurbilago ikusten zuela orain **espaloi**-zorua, eta hanka haiek bereak baino askoz ere indartsuagoak zirela. Karlos Linazasoro

Espaloi-ertzean eserita, mutil gazte bat uzkurtuta zegoen farol baten ondoan. Lopez de Arana

Entzun zuten lehenengo gauza bagoi txiki baten txistu dardarati bat izan zen, ferryaren sarrera-gunearen pareko **espaloi**-ertzetik zetorrena. Lopez de Arana

Haize erauntsiek kaleko harlauzen gainera jaurtikitako ur parrastek errekatxo lasterrak sortzen zituzten **espaloi** bazterretan estolda bila. Josu Landa

Eguerdi aldera, hainbat eta hainbat langabetu irtenen ziren kalera, **espaloi** bazterrera, egunezko kukaratxak, azalez ere labezomorro belztuak balira bezala, urtetako lanezak ganoragabekeria mozkortzen ziela. Iñaki Zabaleta

Urratsez urrats egin zuen eguzkiak zipriztinduriko **espaloi**-bidea, buruarekin han-hemenka gur eginez nola etxe-ezkaratzetan puntu egiten ari ziren auzotarrei hala ostargi-belarren lorategietan makurtuta artatsu zihardutenei ere. Mirentxu Larrañaga

Handik aurrera, kuartelaren esparrua mugatzen zuen harresiaren **espaloi** lerroari jarraitu zitzaion. Pedro Alberdi

Espaloi gainean bi gorpu gelditu ziren, biak korapilo bat eginda. Josetxo Azkona

Arbelezko zerua, eraikin garaien artean itoa, berrogeita hamar zentaboko txanponak jaurtitzen ari zen **espaloi** gainera. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldeko espaloian (4); **aurreko espaloian** (5); **aurreko espaloitik** (3); **bat espaloi** (3); **beste espaloian** (8); **beste espaloira** (8); **elgetako espaloia** (3); **elgetako espaloia kafe** (3); **espaloi bat** (3); **espaloi batean** (7); **espaloi batetik** (6); **espaloi batetik bestera** (4); **espaloi berean** (5); **espaloi erdian** (3); **espaloi ertzean** (18); **espaloi ertzean eserita** (3); **espaloi ertzera** (3); **espaloi eta** (3); **espaloi gainean** (7); **espaloi gainera** (3); **espaloia kafe** (4); **espaloia kafe antzokian** (4); **espaloiak ere** (3); **espaloiak zabaldu** (5); **espaloian aurrera** (7); **espaloian barrena** (6); **espaloian behera** (4); **espaloian dago** (3); **espaloian gelditu** (5); **espaloian zegoen** (7); **espaloiaren erdian** (8); **espaloiaren ertzean** (7); **espaloiaren kontra** (4); **espaloietan ere** (3); **espaloira atera** (4); **espaloira pasatu** (3); **espaloirik gabeko** (3); **espaloitik jaitsi** (3); **espaloitik zihoan** (3); **eta espaloi** (6); **eta espaloiak** (3); **eta espaloian** (9); **eta espaloiaren** (3); **eta espaloietako** (5); **eta espaloietan** (10); **eta espaloietatik** (3); **eta espaloiko** (3); **irten eta espaloian** (3); **kaleko espaloian** (3); **lagun espaloian** (4); **zegoen espaloi** (3); **zen espaloian** (4); **ziren espaloi** (3); **zuen espaloi** (5)

España ik **espainiar**.

España ik **espainiar**.

espanglish ik **spanglish**.

espaniar ik **espainiar**.

espaniera ik **espainiera**.

espaniol ik **espainol**.

espanol ik **espainol**.

espanol ik **espainol**.

españoldu ik **espainoldu**.

españolismo ik **espainolismo**.

espanolista ik **espainolista**.

espanolista ik **espainolista**.

españoltasun ik **espainoltasun**.

espansibo ik **espantsibo**.

espansionista ik **espantsionista**.

espantagarri *izond* espantatzen duena, izugarria, ikaragarria.

Eguneroko harremanak, edo, hobekiago erranda, ikusten nituen jende bakarrak, zeren harreman gutti bainuen jende horiekilan, salbu delako Antilletako beltz horrekilan, arratsalde **espantagarri** haren ondotik. Filipe Bidart

Telebistan agertzen diren robot gisako munstro **espantagarri** horietariko bat. Aingeru Epaltza

Lortu arren ez zuen inork aditzerik izan [...] dozenaka kuku-erloju arratsaldeko zortziak ematen hasi baitziren, aldi-bereko zaparrada **espantagarri** batean. Harkaitz Cano

Brusela hiri **espantagarria** dela ia aho batez erabaki dugu. Edorta Jimenez

Arratsalde osoan autobusez ibili ginen hara eta hona, helbururik gabe, eta horrela, jauregi, monumentu eta saltegi **espantagarriak** ikusi genituen. Daniel Landart

Zirraragarriak ziren liburu koadro argazki haiek guztiak, **espantagarriak**. Lutxo Egia

Ordurako zerua bonba-hegazkinen zurrumurru astunak harturik zegoen, eta haietatik kulunka leunez jaisten ziren panfleto horiak airean, honelako ziri-bertso **espantagarriak** mandatu. Juan Garzia

Baina fedeak mendiak mugitzen ditu, eta munduan diren kubo **espantagarrienak** edertzen. Iñaki Segurola

Ez ginuen ez organo **espantagarririk**, ez koro erdi profesionalik eskaintzeko. Herria

Partida hau frango jokatua izan da burutik buru, denak ari, tantoek irauten eta nahikariaz ari, deus **espantagarririk** egiten ez bazuten ere. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
deus espantagarririk (3)

espantagarriki *adlag* era espantagarrian.

Teatro-lan **espantagarriki** ederra, poesiaz betea, oso gaur egunekoa. Pablo Sastre

espantapajeria *iz adkor*

Eta zer da ihauteria, **espantapajeria** ez bada? Patziku Perurena

espantatu, espanta(tu), espantatzen du *ad* izutu.

Esan dezaket, eskua bihotzean ipinita, ez ninduela ezustean harrapatu, ez ninduela neurriz kanpo **espantatu**. Karlos Linazasoro

Ez ziren sobera **espantatuko**. Aingeru Epaltza

-Zertaz **espanta**? Hasperen ozena ateraratzen genuen orduan, **espantatuak** baino gehiago, doi bat tronpatuak heriotzaren lan azkarraz. Aingeru Epaltza

Ohartzen hasita, **espantaturik** ohartua zen neskatikoa ez zitzaiela beti hotz izaten begirada eta ateraldi horiei. Aingeru Epaltza

Esan dezaket, eskua bihotzean ipinita, ez ninduela ezustean harrapatu, ez ninduela neurriz kanpo **espantatu**. Karlos Linazasoro

Ez ziren sobera **espantatuko**. Aingeru Epaltza

Bonbaz eta terrorez noizbait bazterrak majo **espantatu** zituzten sindikalista iraultzaileak edo anarkistak. Joxe Azurmendi

Ez zirudien **espantatuegia**. Lutxo Egia

Saia zaitez zure alde iluna ezagutzera ez ematen, **espantatu** ez dadin, eta probetxu on, kabroi hori. Eider Rodriguez

espantero *iz* **

Miarritzen lurreratu eta har zezakeen Mercedesik erraldoiena alokatu zuen, **espantero** errea baitzen. Itxaro Borda

Halaz, lankideen irri estofatuak aditzen zituela, Jacques, bere kaiola bitratura itzultzen zen, **espantero**. Itxaro Borda

espantigarri *iz* harrigarria.

Choderlos de Laclosek (1741-1803), obusa asmatzeaz gainera -horren kariaz Napoleonek kondekoratu zuen-, *Harreman arriskutsuak* **espantigarria** izkiriatu ere zuen. Markos Zapiain

espantitu, espanti(tu), espantitzen da *ad ipar* harritu.

Nazarretarrak **espantitu** ziren, asaldatu zen herriko jende guzia ez zioten sinets Jesusek egin zezakeela holako mirakulurik eta hoin prediku ederrik. Xipri Arbelbide

Ez da beraz **espantitzeko** baldin Jainkoak bortizki gaztigatzen baditu Igandeko pausuaren hausle sordiesak, eta aldiz ausarki laguntzen, gerizatzen eta saristatzen, lanetik Igandearekin urruntzen direnak. Xipri Arbelbide

Ez **espanti** beraz Igandeko Mezaren arbuiatzileri Jainkoak gaztigu bortitzak igortzen baditu. Xipri Arbelbide

espantokeria *iz adkor* egintza harrigarri eta gaitsezgarria.

Baina hartaratu gabe, hemendik eta oraintxe, bota dezaket diagnostikoa: ordutegi eta leku fijorik gabeko eztabaida eta **espantokeria** horiek erran nahi dute alardea zaharkitu egin zaizuela, hori da, ez negar egin, enkaratu egia. Patziku Perurena

---

espantsibo *(corpusean **espansibo** soilik) izond* hedakorra.

Teorian [...] bi diru politika mota aplika daitezke: hedakorra edo **espansiboa** -ekonomian batetik bestera dabilen diru kopuruaren hazkundea eta interes tasen beherakada ekartzen duena-, eta kontrakoa, murrizkorra -diru kopurua murrizten duena eta interes tasen gorakada ekartzen duena. Iñaki Heras

---

espantsio *(ETCn **178** agerraldi) iz* hedapena.

Makrosumarioekin, Elosuak ohartarazi zuenez, **«espantsio** prozesu hori» azken muturreraino eraman dute: «Auzitegi Nazionalak terrorismoaren kontzeptua zabaldu ez, lehertu egin du». Berria - Euskal Herria

Etenkako emari baten gorabeherak leundu beharrean gertatzen den ingeniariak **espantsio** -ontzi bat jartzea pentsatuko luke ziur asko, ponpaketa-zikloaren hasierako likido-soberakina gorde eta bulkada batetik besterako tarteetan emateko. Irene Aldasoro

---

espantsionista *(ETCn **70** agerraldi; orobat **espansionista** ETCn **22** agerraldi) izond* hedapenarena, hedapenaren aldekoa, eskuarki ekonomian.

Zalantzarik gabe Irakeko herriaren erresistentzia heroiko eta abertzaleak munduko herrien inperialismoaren aurkako sentimendua suspertzen du, inbaditzaileen koalizioaren egitasmo **espantsionista** doilorren aurka gogor jotzen duenean. Berria - Mundua

Estatuarekin ere holako zerbait gertatzen zaigu: bere unibertsalismo **espansionista** eta esklusibistaren ondorio leherkorrak ezagunak zaizkigu. Joseba Zulaika

1894az geroztik, Korean esku hartu eta Txina militarki garaitu zuelarik, Japoniak bere asmo **espansionistak** berretsi zituen. Koro Navarro

Albaniar jeneral hau, industria-garapenaren garrantziaz oharturik eta Frantziaren laguntzarekin, herrialdea modernizatzen saiatu zen, eta, hala, politika **espansionista** bideratu zuen, europar herrialdeena eredu hartuta. Joan zen mendearen hasieran, 1914-1916 urte inguruan, Italia oso **espansionista**, kolonialista izan zen eta inbasio asko egin zituen. Koro Navarro

Gerra-hotsa zebilen bazter guztietan, etengabeak ziren Hitlerren asmo **espantsionistei** buruzko zurrumurruak, eta mundu guztiak zekien Parisek sekulako irritsa sortzen ziela naziei. Anjel Lertxundi

---

espantu *(ETCn **1.726** agerraldi)* **1** *iz* harridura; harrokeria; sentipen baten adierazpen gehiegizkoa.

Komunzuloaren gainean jarrarazirik, kotoi puska bat ur oxigenatuarekin blaitu eta bisaia igurtzi zidan, nire **espantuei** kasurik egin gabe. Aingeru Epaltza

Bertsolariak ez ditu **espantuak** maite, ez da inolako keinu biziren zale. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arreba asko pozten zen bisitan azaltzen nintzenean, "Orain ere dirua gastatzen!" amaren **espantuak** itxuratzen zituen pastelak mahai gainean uzten nituelarik. Koldo Izagirre

Jende asko aspertuta baitago fikzioaren hauspoketa mugarik gabeetan sorpresaz sorpresa eta **espantuz espantu** ibiltzen. Anjel Lertxundi

Zur eta lur eginik uzten nauzu -esan zuen dama atseginak, eskuak **espantuz** elkarturik berak ere. Jose Morales

-Bakea emak -ebaki zion **espantua** Gaxtonek-. Itxaro Borda

Espantua segurik merke dute hortaz ari diren ainitzek. Herria

Espantua urdailetik eztarrira igo zitzaizunean, zerbait esateko ahaleginak eman zizun benetako egoeraren neurria. Hasier Etxeberria

Hori zen preseski desiratzen zuena: **espantu** eta harrotasunik gabeko naturaren elementu soil bat izatea, harria, hegaztiak, belarra edo axolarik gabe zeruan bazebilen euriz kargatutako hedoi bat. Itxaro Borda

Nor ere menturatzen baita, dena **espantu** eta furfuria, ustez eta gauaz denak libro dituela, hori nekez da Gauekoren aztaparretarik eskapatzen eta sano sanoa etxera itzultzen. Michel Oronoz

Komunzuloaren gainean jarrarazirik, kotoi puska bat ur oxigenatuarekin blaitu eta bisaia igurtzi zidan, nire **espantuei** kasurik egin gabe. Aingeru Epaltza

Nire oihu eta **espantuek** gazteluko biztanle guztiak erakarri zituzten patiora. Aingeru Epaltza

Hasi zen, **espantuak** merke, ez zuela iraunen Saddam Hussein-en kontrako gerlak. Herria

Zahartzearen hondatze progresiboaren aztarnak modu naturalean, **espanturik** gabe ageri dira hemen. Unai Elorriaga

Kameretatik ikusi dute telefonotik hoska, eta paretik, preferentziatik, jaurti duten bala isilak kopeta zulatu dio, garbi, **espanturik** gabe, ia dotoreziaz esango nuke. Karlos Linazasoro

Deus **espanturik** gabe, ixilik eta eztiki, erien ondoan iragaiten dituzte egunak eta gauak. Xipri Arbelbide

Eta Donatellok orduan, **espantuz** : "Oi, Paolo, estal ezak heure koadro hori!". Juan Garzia

Horrek guztiak, ordea, **espantu** guti merezi du, zeren eta, alde batetik, argi guti ekartzen baitu eta bestetik orobat gauza berarekin gauza bera adierazten baitu. Piarres Xarriton

Bakarrik zegoenean, berehala itzaltzen ziren oroitzapenen intziri eta **espantu** haiek, eta Pontitok baretasuna iradokitzen zion. Xabier Olarra

Lionel Jospin gobernuburua dena **espantu** arizan zen hortaz. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Espantu hutsa. Aingeru Epaltza

Espantu handiz mintzatu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Ohi bezala, **espantu** handirik gabe aditu zituen guztiak, une bakar batean ere hitza kendu gabe. Aingeru Epaltza

Laztan leun eta lasaiak, besterik ez, eta orgasmoa izatea orro eta **espantu** handirik gabe. Luis Elberdin

Ez naiz **espantu** heroikoez ari, ez eta historiaren nondik norakoak aldatzen dituzten keinuez ere; ez dira enperadore erromatarrek hatz lodia goratuz edo beheratuz egiten zituzten haiek gogoan ditudanak. Harkaitz Cano

Agurearen aurpegiak **espantu** izugarri baten trazak zeuzkan; une hartan Nora arian-arian itsasoan hondoratzen ikusten ari zela zirudien. Anjel Lertxundi

Gero, galerian lehen pausoa eman duelarik, besoak zabaldu eta **espantu** dramatiko samar bat egin du, egia esan, hasperen sakonean: [...]. Koldo Izagirre

Liburuan, ordea, ez dago **espantu** nostalgikorik, heiagorarik, malkorik. Berria - Kultura

Badakit kontatzen ari natzaizun guztia **espantu** groteskoak direla, umekeriak. Eduardo Matauko

Dena laudorio eta **espantu** faltsu, buruan zuten sarraski lehiaren estaltzeko eran. Itxaro Borda

Horren kontura sekulako **espantuak** egiten ditu: kamamilazko gargarak egiten ditu, mirra tinduz igurzten du ahosabaia, aringarri mentoldunaz igurzten du bularraldea, sudurra, hortzak eta mingaina, eta umore txarrez dago hala ere. Josu Zabaleta

Sekulako **espantuekin** bere lagunei kondatu zituen, berak gainera edertuz, osatuz, luzatuz, eskolan ikasiekin nahasiz. Michel Oronoz

Jendearen harridurazko **espantuak** . Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Goiztiar aguretu den gizaseme horietako bat, **espantu** aurpegiarekin esnatu zen bat-batean, lurra jergoi hartuta zuen lealditik. Harkaitz Cano

Itsusiak ere badira amerikano horiek, horratik, hemengo gizakien aldean: horien saltxitxa egosi tankerako larmintz gorrixka, okaztagarria, bizi ere penizilina dagoelako bizi dira, horra, eta gainera, horien **espantu**-imintzioak, zoriontsuak bailiran, amerikanoak direlako. Joxe Austin Arrieta

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1785eko aldarri bat, zeinean F. Tom. Lorenzo Matteucci-k, Ankonatar Markako Inkisitore orokor, Gaizkeria Heretikoaren kontra bereziki Ordezkari izendatuak, irmotasun-**espantu** handiz eta garbitasun eskasez "ordenatzen du, debekatzen du, eta berariaz agintzen, ezein Judu ez dadila ausart Kristauengandik inolako Tresna motaren gaineko eskolarik eta are gutiago Dantzarenik hartzera". Juan Garzia

Une batez, suzko sugea eztarritik behera jaisten zitzaion bitartean, begiak itxita eta aurpegia nazka **espantu** batean uzkurturik eduki zuen Angelak. Alberto Ladron Arana

Ordu baten buruko martxak gorputza fleitean ezarri dit, kasik gazte **espantu** batek beroturik, eta naturak eskaini didan adiskidantzari eman naiz. Piarres Aintziart

4 *espantu egin*

-Et, Mitxel, et! -**egin** zuen **espantu**- Orain ez haiz, bada, seme bat nahi duala esaka hasiko? Anjel Lertxundi

-Ehun bakoitzeko! -**egin** zuen **espantu** Txitxikovek, aho zabalik eta Sobakevitxi begietara tinko so eginez. Jose Morales

· -Zergatik dion hori? -galdetu nion, harritu baten **espantua eginez**, baina ez Adak zer esan nahi zuen ez nekielako, denbora irabazteko baizik. Anjel Lertxundi

Nik ez dut **espanturik egiten**, kantatu ere ez, baina badakit poztea zer den. Joxe Austin Arrieta

Bitxikeriak denen miragarri izan beharko zukeen, baina, lehengoetan bezala, inork ez zuen **espanturik egin**. Aingeru Epaltza

Lakarko batailan bala batek izterrean zauritu ninduela entzutean, sekulako **espantuak egin** zituzten biek; eta zauria erakutsiko ote nien galdetu zidaten. Txillardegi

5 *espantuzko*

Itsas uhinen kalpar apartsua Baleamendi deitzen duten harkaitz tzarraren kontra; kaio baten **espantuzko** hegaldia. Anjel Lertxundi

Mathias Ungar erregeren borreroak? -baietsi zuen, galdetu baino, borreroburuak, sinesgarritasunaren akabuko aurpegiera **espantuzko** batez. Anjel Lertxundi

Etxekoandrearen **espantuzko** erreakzioen arrazoiaz jabeturik, irribarre egin zuen Willemek. Anjel Lertxundi

Harrigarria da bala batek egiten duen inpaktuaren soinua, ematen du **espantuzkoa** behar duela izan, ozena ez ezik baita lizuna ere, baina hain justu kontrakoa da, garbia da, errespetuzkoa, kaligrafia ezin dotoreagoz sartzen da kopetan, orbanik utzi gabe, gehiegizko zulorik ireki gabe. Karlos Linazasoro

Auzoko eskusoinu batek infinituki ekiten zion *La Cumparsita*ri, kantu zaharra delako ustekeria irentsarazi diotelako hainbat jendek atsegin duen fitskeria samin-**espantuzko** horri. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski espantu (3); **baino espantu** (3); **batere espanturik** (5); **da espantu** (5); **dena espantu** (30); **du espantu** (5); **dute espanturik** (3); **egin zuen espantu** (8); **espantu asko** (3); **espantu baizik** (3); **espantu egin** (5); **espantu egitekorik** (12); **espantu egiten** (3); **espantu egiterik** (3); **espantu eta** (9); **espantu frango** (4); **espantu guti** (4); **espantu handi** (3); **espantu handi handirik** (3); **espantu handirik** (8); **espantu handirik gabe** (4); **espantu handiz** (3); **espantu txitxikovek** (4); **espanturik egin** (7); **espanturik ez** (5); **espanturik gabe** (14); **eta dena espantu** (4); **eta espantu** (24); **ez da espantu** (3); **ez du espantu** (3); **ez dute espanturik** (3); **haatik espantu** (3); **sekulako espantuak** (3); **sobera espantu** (3); **zuen espantu** (9); **zuen espantu txitxikovek** (4)

---

espantuka *adlag* espantu egiten.

Hirurok aparteko talde bat osatu dugula iruditu zait, axolagabe samarra batez ere **espantuka** eta zalapartaka ari zirenen aldean. Patxi Zubizarreta

Ikusi gintuen obispoak halako batean, eta **espantuka** hasi zen guri deika. Inazio Mujika Iraola

Espantuka eta txaloka esan zituen hitzok, baina ez bere hitzak indartzeko, jendearen arreta erakartzeko baino. Anjel Lertxundi

Aitzin eguneko goizetik ez ginen elkarretaratuak eta **espantuka** lotu zen nire planta eskasa ikustean Mutilak fardel ageri ziren, keinu eta **espantuka**. Aingeru Epaltza

Erregina itzultzen da; erregea hilik aurkitu, eta samin-**espantuka** hasten da. Juan Garzia

-Hara, maiteak, kasik nahiago zaituztet fraideeneko garaiaz aritzen zaretenean -**espantuka**-: "oroitzen haiz?", "oroitzen haiz?", "oroitzen haiz?". Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espantuka ari (10); **espantuka ari zen** (3); **espantuka eta** (5); **espantuka hasi** (3); **eta espantuka** (14); **eta espantuka ari** (3); **ez espantuka** (3); **hortaz espantuka** (4)

---

espantukari *izond* espantu egiten duena.

Ainitzek uste zuketen alta Sarkozy-k beheiti eginen zuela izaitekotz, jendea oharturik arras lauso agertua zela jazartze horieri buruz eta sobera **espantukari** haste hartan segurik. Herria

Ziburun berean baditake halere ainitzek ez duten biziki ezagutzen, berenaz gizon ixila baita, ez batere **espantukaria** eta ohore gosea. Herria

---

espantukeria *iz* izugarrikeria.

Bizpahiru **espantukeria** egin eta gero, ostatuan jartzen ziren 'rosé limé' batzuen edateko. Ramuntxo Etxeberri

Espantukeria hutsa ote? Ramuntxo Etxeberri

Selektibitatea esaten dioten **espantukeria** zentzugabe hori pasatu behar izan duen mutil baten aita naizelako. Joxerra Garzia

Eguneroko zereginari lotzea hartuko du orain helburutzat, zaintzaleen zirika eta **espantukeriei** kasurik egin gabe. Filipe Bidart

Kostunbrista den aldetik koadro moduan aurkezten dizkigu gaiak, eszenario batean bezala, eta anekdotak badu umore tantaren bat gehienetan, pesimismoan edo **espantukerian** ez erortzeko aproposa. Berria - Kultura

---

espantuki *adlag* espantuz.

Deusik ikustekorik aldizkari eta irrati batzuk **espantuki** laudatzen duten arimarik gabeko bentta gune erraldoi eta artifizial horiekin. Herria

---

espantuntzi *izond* espantuka ari ohi dena.

Hortaratzea ere bada zerbait! Nehor ez da beraz harrituko erresuma edo elkarte **espantuntzi** batek oilarra hartzen badu bere itxura bezala, eta zenbaitek, gaiztakeri xorta batekin erranen dute oilarra dela hegaztietan bakarra bi patak kakan berdin kantu egiten duena. Michel Oronoz

---

espantutsu *izond* espantuz betea.

Ez gira gu laudorio **espantutsu** horietara lerratuko. Herria

Horien guzien berri jakitera joaitea gu ere, gure mundu **espantutsuaren** erdian, ez ote da guretzat anaitasun urrats bat arras beharrezkoa! Herria

Urteko berriak **espantutsu** nahi luzkete holakoetan laborari gazteriarentzat beren bihotz osoa hor ezarri zutenek, arrazoinekin. Herria

---

español ik **espainol**.

---

esparadrapo ik **esparatrapu**.

---

esparatrapu *(orobat **esparadrapo** eta **espatrapu** g.er.)* **1** *iz* telazko edo paperezko zerrenda estua, alde batetik gai itsaskorra duena, bendak lotzeko edo txaplata gisa erabiltzen dena.

Orain damu dut horrela gertatu izana, zeren oineko behatza infektatu egin baitzait eta pomada jarri behar dut, eta gazak eta **esparatrapua**. Josu Zabaleta

Zainak moztuz suizidio ahalegina egin ondoren oraindik sendatzen ari denari eskumuturretatik **esparatrapuak** erauztea. Harkaitz Cano

Ur tragoxka zela, **esparatrapua** aldatuta edo zuzenean pilota beste aldera boteaz, arnasa hartzen eta Gaubekaren erritmo bizia eteten saiatu zen. Berria - Kirola

Ezin da inkomunikatu eta gero **esparatrapua** jarri esanez protokoloa aplikatzen dela. Berria - Euskal Herria

Partidan eskuak ixten ditudanean indarra eta konfiantza ematen dit **esparatrapuak**. Berria - Kirola

Artilez eta **espatrapuz** egindako pilota txar haiek. Patziku Perurena

---

esparbel *iz* sare biribila, ur mehetan arrantzan egiteko erabiltzen dena.

Zarboen eta perken otarreek, amuarrain sortek, xipa pilek, **esparbelez** harrapaturiko arrain zapalen multzoek zuritasun bizia hartzen zuten, eta beren altzairuzko bizkarrezurren tonu urdinxkak leundu egiten zitzaizkien pixkanaka sabelen gozotasun gardenean. Karlos Zabala

---

esparniatu, esparnia(tu), esparniatzen du *ad* kendu, saihestu.

Ez zuen zoritxarrak ez nahigabeak **esparniatua** Janpiarre bere denboran, gazterik gerlarat joan eta preso egina izan zen, deportatua Dachau leku beltz hartarat. Herria

---

esparrago *iz* zainzuria.

Aitak **esparragoak** eskuz hartzeko ohitura zuen. Joan Mari Irigoien

Entsalada handi bat ari da atontzen Luzia, hau dun ene jakirik gogokoena, esan berri dio Lucyri: letxuga, tomatea, tipula, piper berdea, arrautza egosia, endibiak, azenarioa, atuna, **esparragoak**, artoa eta aguakatea, izugarri gustatzen zaidan. Joxemari Iturralde

Nafarroako **esparragoak**, bakailaoa bizkaitar erara Arabako patatekin eta Ezpeletako piperrekin, edateko Gipuzkoako sagardoa eta Nafarroa Behereko ardoa, eta postrerako Zuberoako gazta. Hasier Etxeberria

Kontua da, Patri, Ezpeletako piperra ez dela egokiena bizkaitar saltsa egiteko, patatak ere ez direla bertan jartzen eta Nafarroan, ai Nafarroan, gaur ia ez dela landatzen **esparragorik**. Hasier Etxeberria

Joseluk egin zuen afaria: **esparragoak** olibekin, eta saltxitxak tomatearekin. Alberto Barandiaren

Nafarrak zuriz jantzita atera beharko dute, **esparragoak** bezala, eta ea Murtziakoek pikilloko piperrek uzten duten zaporearekin amaitzen duten. Berria - Kirola

---

esparroi **1** *iz* ezpata-arrain mota, atunak eta delfinak jaten dituena.

Han azpian, ehun metrora, **esparroi** gosetu bat zegoen gaitzeko sarraskia egiteko irrikan. Koldo Izagirre

2 irud/hed

Esparroi harekin ibiltzea, polito idazten nuela esatea, aztalak sukaldean depilatzea, liburu sobietikoak Txatori pasatzen ez uztea, gauza asko barkatu nizkion orduan arrebari. Koldo Izagirre

Gorroto nuen **esparroi** hura, bai, eta gorrotoago nuen neure burua bostekoa estutzerakoan "Tabakorako!" esanik eskuan jarri zidan billetea ez hartzeko adorerik ukan ez nuelako. Koldo Izagirre

---

esparru **1** *iz* hesiz inguraturiko tokia; eremu mugatu edo itxia.

Gure **esparrutik** hurbil, jakin dudanez, kultura aldetik garrantzitsua den hiria dago, Weimar. Urtzi Urrutikoetxea

Eskubide historikoak «Konstituzioaren **esparruaren** barruan» eguneratu behar zirela. Berria - Euskal Herria

Une honetan topaketa horiek Iberoamerika eta penintsulako **esparrura** mugatzen dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Mediterraneo aldeko **esparru** eta eremuotan, tokian tokiko haize klaseekin 30 gradutik gorako zerrenda osatu ahal izan da. Pello Zabala

Han hil zen, 1945eko maiatzaren 5ean, **esparrua** askatzeko bost egun falta zirela. Josu Zabaleta

Esparruak murriztea askatasuna mugatzea da. Berria - Euskal Herria

Emakumeek gizartean galdutako **esparrua** berreskuratzen hasi nahi dute. Berria - Euskal Herria

Esparruko gainontzeko biztanleoi, ostera, erregutu zigun itzarrik irauteko, gauerdira arte beharrezkoa izanez gero, gulash sendoa prestatzen hasi behar zutelako. Urtzi Urrutikoetxea

Esparruko judu guztiak. Urtzi Urrutikoetxea

Ari gara **esparru** berriak irabazten. Joxerra Garzia

Umoreak bizitzako **esparru** guztietan du lekua eta sufrimenduari aurre egiteko erabiltzen da. Berria - Euskal Herria

Gure aldetik, elkarlanerako **esparruak** lantzea erabaki dugu. Berria - Euskal Herria

Datozen urteetarako finantzaketarako **esparrua** martxorako zehaztuta izatea eskatu zioten euskaltegiek Jaurlaritzari. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Montzoien **esparru** tropikala. Pello Zabala

Buchenwalden kanpalekuetan bizi ginen, [...] *Kleinlager*-ean, **esparru** txikian. Urtzi Urrutikoetxea

Filosofiaren **esparru** naturala, izan ere, orrialde idatzia da, liburua, artikulua, idazlana. Askoren artean

Mundu erreal horren bi eskualdeak, higiduren erregulartasun aldagaitzen eremua (zeruko **esparrua**) eta gure mundua, kontingentea, aldakorra eta galgarria (zerupeko **esparrua**) bereizi zituen Aristotelesek. Askoren artean

Europar **esparruan**, Hazkunde eta Enplegurako Lisboako Adierazpenak (2000) inflexio puntu bat erakusten digu iraunkortasuneranzko bidean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Antzeko esperientziaren bat izango du, edo izan dezake, basoan galduta dabilenak edo goizeko lauretan autopistako atseden-**esparruan** gelditu denak. Bernardo Atxaga

Konzentrationslager deritze alemanez kontzentrazio-**esparruei**. Urtzi Urrutikoetxea

Buchenwalden kanpalekuetan bizi ginen, *Zeltlager*-ean, kanpamendu-**esparruan**. Urtzi Urrutikoetxea

Guztiz bestelakoa omen da ordea, gaineratu dutenez, *Arbeitslager*-a, lan-**esparrua**, hor bizitza erraza ei da. Urtzi Urrutikoetxea

Hau adibidez *Vernichtungslager*-a da, deuseztatze-**esparrua** alegia, esan digutenez. Urtzi Urrutikoetxea

4 ekintza, jarduera eedo egoera bat gauzatzen den arloa edo saila.

Kanten arrazoimenarentzat esentzialak dira mugak eta **esparruak**. Askoren artean

Etika aplikatuaren **esparruan** murgilduko gara, gure azalpena **esparru** horren adibide paradigmatiko batera murriztuz. Askoren artean

Euskarak hezkuntzaren **esparruan** jasaten duen egoeraren inguruko txostena helarazi zieten Sortzen-Ikasbatuaz taldeko kideek Nafarroako Parlamentuko ponentzian parte hartzen duten parlamentariei. Berria - Euskal Herria

1978ko **esparrua** gaindituko duen Espainiako Konstituzioaren erreforma sakona eskatzeko. Berria - Euskal Herria

Zientzien **esparruan** biologiak duen tokia aztertuko da lehenik. Askoren artean

Zientziaren Filosofiaren **esparruari** dagozkion helburuak, kontzeptuak eta metodologia aztertzen dira. Askoren artean

Komunikabideen **esparrua** garrantzitsua da Euskal Herrian, bereziki, askok gazteon eta euskaldunon ordez hitz egiten dutelako. Berria - Euskal Herria

"Zientzia, Teknologia, Gizartea" **esparruan** aditua da. Askoren artean

Bertsogintza eta bertsolaritza: sorkuntzaren **esparrua** eta antolaketaren **esparrua**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

5 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskal eremu unibertsitarioan **esparru** berri horren araberako aldaketak egin behar dira. Berria - Euskal Herria

Denbora eta espazio neurgarriak baino haratagoko eremu batean dago gure baitako irudimenaren **esparru** misteriotsu hori. Anjel Lertxundi

Esan behar dut gai horiek guztiak aztertzeko eta garatzeko **esparru** legala ere badagoela. Berria - Euskal Herria

Salatu du **esparru** publikoak gizonaren ikuspuntutik egin direla eta emakumea ez dutela aintzat hartu. Berria - Euskal Herria

Aurtengo ekitaldiari buruzko eskuorrian karrika jotzen duzue gazteen **esparru** naturaltzat. Berria - Euskal Herria

Euskarak hezkuntzaren **esparruan** jasaten duen egoeraren inguruko txostena helarazi zieten Sortzen-Ikasbatuaz taldeko kideek Nafarroako Parlamentuko ponentzian parte hartzen duten parlamentariei. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko eragile politikook ditugun hiru **esparru** faktikoetan, EAEn, Nafarroan eta Iparraldean, indar eta eragile politikoen mahaiak eta bilkurak sortu behar dira. Berria - Euskal Herria

Ikerketak ez du soilik elkarte zientifikoen balio soziokulturalen berri ematen, gertakari zientifikoa bera bilakatzen baita **esparru** soziokultural horren isla. Askoren artean

Ikuspegi bi horiek **esparru** terminologiko beraren mendean jartzeak, besteak beste nahasketa izugarria eragiteaz gain kamuflatze politikorako balio du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Izan ere, **esparru** orokorra aldatzea eskatzen badute, **esparru** orokorreko guztiok erabaki beharko dugu. Berria - Euskal Herria

Historia naturalaren **esparru** berezian. Xabier Arregi

Epistemologia kartesiarraren zati nagusia ikusi eta gero, badirudi **esparru** epistemologikoaren mugak jarri ditugula. Askoren artean

Esparru juridiko-politikoaren aldaketaren aukerari atea irekitzen dion pasartea dator, ordea, bukaeran. Berria - Euskal Herria

Denek onartzeko moduko **esparru** politikoa hitzartzea nahi du PSEk. Berria - Euskal Herria

Hipotesi hori **esparru** politikora eramango dute sofistek berehala. Askoren artean

Goi mailako hezkuntza Europan: titulazio berriak eta **esparru** europarra. Berria - Euskal Herria

Sei **esparru** nagusi zehaztu ditut: aisialdia, irakaskuntza, lan arloa, hedabideak, administrazioa eta literatura. Koldo Zuazo

Filosofia morala hiru **esparru** nagusitan bana daiteke: teoria etikoak (edo etika arauemailea edo normatiboa), etika aplikatua (edo etika praktikoa) eta metaetika. Askoren artean

Beharrezkotasuna eta apriorikotasuna **esparru** desberdinetako kategoriak dira. Askoren artean

Komenigarria litzateke elkarrizketarako **esparru** plurala irekitzea, gai batzuen ingurukoa, eta alderdi batzuekin. Berria - Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio politika sozio-laboralen eta enplegu politiken esklusibitatea, berezko **esparru** sozio-laborala eratzeko. Berria - Euskal Herria

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

«Gure lan **esparru** propioa kudeatuz soilik konpontzen ahalko ditugu arazoak», dio agiriak. Berria - Euskal Herria

Abokatua izanik, gizarte-**esparruan** aritu izan da, indarkeria matxistaren aurkako alorrean, batez ere. Berria - Euskal Herria

Bi negoziazio **esparruren** ereduarekin, denontzako tokia dago. Berria - Euskal Herria

Zehazki, Bizkaiko hiru [telebista] emisio **esparrutan** egin ditu aldaketak: Getxokoan, Bilbokoan eta Mungiakoan. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriak bere unibertsitatea» izan behar duela aldarrikatu dute Euskal Herriko unibertsitate **esparruko** hainbat ikasle, irakasle eta langilek. Berria - Mundua

Epe horretarako, EHU Europako Goi Irakaskuntza **Esparruaren** barruan egongo da. Beste edozein generok bezala, bere erreferentzia-**esparrua** itxuratzen du bat-bateko bertsolaritzak.Testuinguru horrek lagunduko du autogobernu **esparruari** buruzko adostasuna lortzeko aurrera egiten, Pastorren arabera. Berria - Euskal Herria

Harreman **esparru** berri honek lagundu egingo duelako Euskadiko Ezker Batuaren oinarri soziala sendotzeko eta zabaltzeko. Berria - Euskal Herria

Horren ikerketa-**esparrua** zientziaren eta teknologiaren praktikatik eratortzen diren ziurgabetasunak eta arriskuak aztertzea da. Askoren artean

Katalunian egin ez duena egin behar du, Euskal Herriko erabaki **esparrua** errespetatu. Berria - Euskal Herria

Hautes-**esparrua** Estatu osoa denez gero, Estatuko beste indar politiko aurrerakoiekin eta autodeterminazioa defendatzen dutenekin harremanak edo eta akordioak egiteko aukerak ez dira itxiko. Berria - Euskal Herria

Filosofia Politikoa, beste filosofia-**esparruetan** gertatzen ez den legez, ez da soilik jazotze pasiboa. Askoren artean

Euskararen komunikazio **esparruaren** garapenak albiste-iturrien euskalduntzea eskatzen duela azpimarratu dute. Berria - Euskal Herria

Snowek aipatzen zituen bi kulturetako bakoitzean daude inkomunikazio arazoak, kultura-klase bakoitzean ere inkomunikazio **esparruak** gero eta sakonagoak baitira Ekonomia, jakintza **esparru** gisa, oso da zabala. Anjel Lertxundi

Gure jokabide **esparrua** Hegoaldean dago. Berria - Euskal Herria

Interneten inguruan sortutako negozio **esparrua**, merkataritza elektronikoa, eta, batik bat, 90eko hamarraldiaren azken urteetan horren ospetsu egin ziren puntocom enpresak. Iñaki Heras

Hor dugu ere Inguma datu basea (www.inguma.org), eta beste erakunde zenbaitekin lanean ari gara lankidetza **esparruak** zabaltzeko. Berria - Euskal Herria

4 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Ildo berean, eztabaida **esparru** aldaketaren «une garrantzitsuan» eginen dela iritzi zion Armedarizek. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arte esparru (6); **baina esparru** (5); **bere esparru** (11); **beste esparru** (36); **beste esparru bat** (5); **beste esparru batzuetan** (11); **bi esparru** (9); **bizitzako esparru** (6); **bizitzako esparru guztietan** (4); **da esparru** (22); **dago esparru** (4); **dagoen esparru** (4); **den esparru** (16); **dira esparru** (6); **diren esparru** (9); **du esparru** (7); **duen esparru** (15); **dute esparru** (5); **egungo esparru** (33); **egungo esparru juridiko** (12); **egungo esparru juridikoa** (5); **egungo esparru politikoa** (5); **erabaki esparru** (6); **ere esparru** (6); **erreferentzia esparru** (4); **esparru askotan** (7); **esparru bakarra** (6); **esparru bakoitzean** (4); **esparru bakoitzeko** (6); **esparru bat** (34); **esparru batean** (35); **esparru bateko** (6); **esparru baten** (7); **esparru batera** (9); **esparru batetik** (5); **esparru batzuetan** (18); **esparru batzuetan ere** (4); **esparru batzuetara** (5); **esparru batzuk** (6); **esparru berean** (4); **esparru berri** (16); **esparru berri bat** (6); **esparru berria** (14); **esparru berriak** (7); **esparru berriaren** (5); **esparru eta** (16); **esparru ezberdinetan** (4); **esparru gisa** (7); **esparru guztiak** (9); **esparru guztietan** (33); **esparru guztietara** (6); **esparru honetan** (16); **esparru hori** (20); **esparru horiek** (6); **esparru horietan** (9); **esparru horrek** (5); **esparru horren** (6); **esparru horretan** (61); **esparru horri** (4); **esparru instituzional** (4); **esparru jakin** (7); **esparru juridiko** (75); **esparru juridiko eta** (4); **esparru juridiko politiko** (16); **esparru juridiko politikoa** (16); **esparru juridiko politikoak** (9); **esparru juridiko politikoaren** (10); **esparru juridiko politikoari** (4); **esparru juridikoa** (15); **esparru juridikoaren** (4); **esparru osoa** (6); **esparru politiko** (32); **esparru politiko berri** (5); **esparru politiko berriaren** (4); **esparru politiko eta** (5); **esparru politikoa** (36); **esparru politikoak** (4); **esparru politikoan** (6); **esparru politikoaren** (8); **esparru politikoari** (12); **esparru politikoari buruzko** (12); **esparru pribatuan** (4); **esparru propioa** (9); **esparru publikoan** (6); **esparru sozioekonomikoa** (4); **esparru txikian** (4); **esparru zabal** (13); **esparru zabal bat** (5); **esparru zabal batean** (4); **esparru zabala** (8); **esparru zabalagoa** (7); **eta egungo esparru** (5); **eta esparru** (64); **eta esparru guztietan** (4); **eta esparru horretan** (6); **eta esparru juridiko** (9); **euskal esparru** (12); **euskara esparru** (4); **gara esparru** (4); **gaur egungo esparru** (5); **gizartearen esparru** (4); **gizarteko esparru** (6); **hainbat esparru** (6); **harreman esparru** (5); **harremanen esparru** (5); **hiru esparru** (12); **hori esparru** (4); **ikerketa esparru** (6); **jakintza esparru** (8); **komunikazio esparru** (4); **kontzentrazio esparru** (31); **kontzentrazio esparru batean** (7); **kontzentrazio esparru batera** (5); **kultur esparru** (4); **lan esparru** (15); **lege esparru** (5); **negoziazio esparru** (6); **oso esparru** (7); **zegoen esparru** (5); **zen esparru** (6); **zituen esparru** (4); **zuen esparru** (5)

artearen esparruan (4); **bakoitza bere esparruan** (4); **bakoitzak bere esparruan** (6); **baten esparruan** (5); **bere esparrua** (12); **bere esparruan** (18); **bere esparrutik** (5); **bere lan esparrua** (4); **berezko esparrua** (4); **beste esparruetan** (6); **beste hainbat esparrutan** (5); **bezalako esparruetan** (4); **den esparrua** (5); **den esparruan** (4); **duen esparrua** (7); **edozein esparrutan** (4); **eibarko hezkuntza esparrua** (6); **erabaki esparrua** (6); **esparrua da** (11); **esparrua dela** (6); **esparrua ere** (4); **esparrua eta** (9); **esparrua euskal** (4); **esparrua ez** (12); **esparrua ez da** (7); **esparrua izan** (6); **esparruak eta** (8); **esparruak ez** (4); **esparruan duen** (4); **esparruan egin** (5); **esparruan egiten** (4); **esparruan ere** (11); **esparruan eta** (5); **esparruan ez** (7); **esparruan kokatu** (4); **esparruan kokatzen** (6); **esparruan lan** (7); **esparruan lanean** (4); **esparruan sartu** (7); **esparruan sartzen** (4); **esparruaren barruan** (11); **esparruari dagokion** (4); **esparruari dagokionez** (4); **esparruen arteko** (4); **esparruetan eta** (4); **esparruetara eraman** (4); **esparrura eraman** (7); **esparrutik aldendu** (4); **esparrutik kanpo** (11); **eta esparruak** (4); **eta hainbat esparrutan** (6); **europako esparruan** (7); **euskal esparrua** (25); **euskal esparruaren** (6); **euskararen esparruan** (6); **filosofiaren esparrua** (4); **finantzaketarako esparrua** (4); **gure esparrua** (4); **gure esparruan** (8); **hainbat esparrutako** (9); **hainbat esparrutan** (28); **harreman esparrua** (5); **harremanen esparruan** (4); **harremanen euskal esparrua** (12); **harremanetarako euskal esparrua** (8); **hezkuntza esparrua** (6); **hezkuntza esparruko** (6); **komunikazio esparrua** (8); **komunikazio esparruaren** (6); **konstituzioaren esparruaren** (4); **konstituzioaren esparruaren barruan** (4); **kontzentrazio esparrua** (6); **kontzentrazio esparruak** (20); **kontzentrazio esparruak eta** (4); **kontzentrazio esparruan** (25); **kontzentrazio esparruari** (4); **kontzentrazio esparruei** (4); **kontzentrazio esparruen** (7); **kontzentrazio esparruetako** (7); **kontzentrazio esparruetan** (18); **kontzentrazio esparruetara** (9); **kontzentrazio esparruetatik** (4); **kontzentrazio esparruko** (4); **kontzentrazio esparrura** (11); **kontzentrazio esparrura eraman** (5); **kontzentrazio esparrutik** (5); **kulturaren esparrua** (4); **kulturaren esparruan** (4); **lan esparrua** (17); **lan esparruak** (6); **lan esparruan** (7); **lanaren esparruan** (4); **lege esparrua** (9); **literaturaren esparruan** (6); **politikaren esparruan** (6); **zenbait esparrutan** (6)

---

esparruka *adlag* esparruen arabera.

Nolabait, **esparruka** zegoen banatua azoka. Berria - Harian

---

esparrutxo *iz* esparru txikia.

Aise gainbegira litekeen **esparrutxoa**. Joxe Azurmendi

---

espartakista *iz* R. Luxemburgok eta K. Liebknechtek zuzenduriko alemaniar higikunde marxistako kidea.

Aski da ikustea, **espartakistak**, sindikalista iraultzaileak, profeta kiliastikoak eta beste zer jendaje dabilen Max Weber-en lerroetan aipatua gai honen inguruan (oraindik ezkerrekoak bakarrik, eskuinekoak laster agertuko dira Alemaniako eszenan). Joxe Azurmendi

---

espartano **1** *izond* latza, zorrotza, hertsia.

Esana dago, dagoeneko, etxea zaharra dela, erosotasunik gabea, garai **espartano** eta latz batekoa. Jon Alonso

Einsteinen gela nahiko **espartanoa** zen: mahai bat eta aulki bi, arbela, egurrezko apalak... eta era guztietako idazkiak, aldizkariak, txostenak. Fernando Morillo

2 irud/hed

Igoeretarako foka-larruak erosteko pobreegi baikinen, iztupa zakarreko oihalak nola josten diren erakutsi zidan, tramankulu **espartanoak**, zeinek, ura beren baitaraturik, legatzen gisa izozten baitira, eta gerri inguruan lotu behar baitira jaitsieran. Juan Garzia

---

espartar *izond* Espartakoa, Espartari dagokiona.

Eskimal eta nomadek, osmanliar eta **espartarrek** bi ezaugarri komun dituzte: espezializazioa eta kasta. Iñaki Mendiguren

Aurkitu dugun agiri batek dio, **espartarrak** eta juduak senide direla eta Abrahamen jatorrikoak. Elizen arteko biblia

Gehiegizko jendetzaren erronkari **espartarrek** mundu helenikoan emandako erantzuna tour de force bat sortzea izan zen, ikuspegi askotatik osmanliarren antzekoa, baina desberdintasun batekin: **espartarren** kasuan kasta militarra **espartar** aristokrazia bera zela. Iñaki Mendiguren

---

espartin *(orobat **espartiñ** g.er. eta **expartin** g.er.)* **1** *iz* zola espartzuzkoa eta gainaldea ehunezkoa duen oinetakoa.

Abarkak askatu eta sutondoan zeuden **espartinak** oinetan lasa-lasa sartu bitartean, sugarraren mingain eta beste, dena erreparatu zezakeen. Pello Zabala

Eskolara joaiten ginen **espartinekin** euririk ez zenean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dionik espartzuzko otarreak eta saskiak egiten zituen -Sarak berak bezala-, baita **espartinak** ere. Joan Mari Irigoien

Egunero aza ez jateko joaten ziren emakume asko **espartinak** egitera Maulera. Patziku Perurena

Lapti: **espartinen** antzeko oinetakoak, urki-azalez eginak. Jose Morales

Kopeta ajeaturik eta eztarria **espartin** baten azpia baino lehorrago izaki, sukaldera sartu zen gero, hozkailuan freskagarriren bat aurkituko zuelakoan. Josetxo Azkona

2 (izenondoekin)

Pilda batzuk soinean, zikinak eta higatuak, dena petatxu, oinetan **espartin** tzar batzuk, zola jana zutenak. Janbattitt Dirassar

Lotsagarri uzten zuen maisuak, anaia nagusiarenak ziren praka zaharrengatik, **espartin** bizartsuengatik edo eskularru higatuengatik. Alberto Barandiaren

3 (hitz elkartuetan)

Ene zango hauntuen gatik doi-doia **espartin** zolak uhalekin lotuak ibiltzen ahal ditut. Michel Oronoz

Mauleko **espartin**-lantegi batean egiten zuen lan, eta igande pasa zebilen Baionan. Rafa Egiguren

Funtsean lankideen gorrotoa jasotzen zuen Jean Marie hura, Bidegorri **espartin** usina hertsi zenean kanporatua izan eta hango errekonbertsio planaren ondotik Etxarrira etorri zen. Itxaro Borda

Horrekin batera, harrapakin gaitza ere bai: "Berdan" markako 1.200 fusil, 400 granada, **espartin** mordo handi bat, burusiak dozenaka. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espartinaren besta (3)

---

espartin *(orobat **espartiñ** g.er. eta **expartin** g.er.)* **1** *iz* zola espartzuzkoa eta gainaldea ehunezkoa duen oinetakoa.

Abarkak askatu eta sutondoan zeuden **espartinak** oinetan lasa-lasa sartu bitartean, sugarraren mingain eta beste, dena erreparatu zezakeen. Pello Zabala

Eskolara joaiten ginen **espartinekin** euririk ez zenean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dionik espartzuzko otarreak eta saskiak egiten zituen -Sarak berak bezala-, baita **espartinak** ere. Joan Mari Irigoien

Egunero aza ez jateko joaten ziren emakume asko **espartinak** egitera Maulera. Patziku Perurena

Lapti: **espartinen** antzeko oinetakoak, urki-azalez eginak. Jose Morales

Kopeta ajeaturik eta eztarria **espartin** baten azpia baino lehorrago izaki, sukaldera sartu zen gero, hozkailuan freskagarriren bat aurkituko zuelakoan. Josetxo Azkona

2 (izenondoekin)

Pilda batzuk soinean, zikinak eta higatuak, dena petatxu, oinetan **espartin** tzar batzuk, zola jana zutenak. Janbattitt Dirassar

Lotsagarri uzten zuen maisuak, anaia nagusiarenak ziren praka zaharrengatik, **espartin** bizartsuengatik edo eskularru higatuengatik. Alberto Barandiaren

3 (hitz elkartuetan)

Ene zango hauntuen gatik doi-doia **espartin** zolak uhalekin lotuak ibiltzen ahal ditut. Michel Oronoz

Mauleko **espartin**-lantegi batean egiten zuen lan, eta igande pasa zebilen Baionan. Rafa Egiguren

Funtsean lankideen gorrotoa jasotzen zuen Jean Marie hura, Bidegorri **espartin** usina hertsi zenean kanporatua izan eta hango errekonbertsio planaren ondotik Etxarrira etorri zen. Itxaro Borda

Horrekin batera, harrapakin gaitza ere bai: "Berdan" markako 1.200 fusil, 400 granada, **espartin** mordo handi bat, burusiak dozenaka. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espartinaren besta (3)

---

espartingile *(orobat **espartin egile**)* *iz* espartinak egiten dituen eskulangilea.

Maite genituen desagertzear zeuden mundu horiek, genituen diot, hor kanpotarrekin batera multzo berean urturik genbiltzalako, artzainak, itzainak, **espartingileak**, ehuleak, txokolate prixa moldatzaileak. Itxaro Borda

"Xangrenekua" **espartingilearen** denda pasata, Plaza Zaharrean sartu nintzen. Txillardegi

Orain badakit Andres Untzainen aita lanbidez abarketagile edo **espartingilea** izan zena eta, enborretik ezpala, abertzale sutsua izan zena ere. Edorta Jimenez

Azkenean Tauzin, Bildozeko **espartin egileak** dü Etxandi enpresaren aktibitatea arrahartü 16 langileekin Sohütan plantatüz atelier berria. Herria

Bertze batean, Jean Jacques Houyou "Donquichosse" Xiberoko **espartin egileak**, uda hastapenean zabaldu ditu ateak bi lan postu sortuz. Herria

---

espartingintza *iz* espartinak egiteko lanbidea.

Gisa bereko urratsa abiatua dute oraino Xiberoan: laborantza eta artzaintza, **espartingintza** eta berdin Jakobe bideak nahi dituzte orain baino hobeki kokatu turismo presentapenetan, gaurko Xiberoa moldatzen lagundu baitute. Herria

Bestelako ogibide batzuk ere badute tokia solairu horretan: artilearen prestakuntza, joskintza, errementaritza, zapatagintza, **espartingintza** eta abarkagintza, esaterako. Berria - Kultura

1950eko hamarkadatik aurrera ziren industria mailara igaroko kautxugintza, **espartingintza** eta oihalgintza jarduerak. Berria - Harian

Pier Pol Berzaitzek apailatu obra horrek kondatzen du XX. mende hastapenean Aragoitik Xuberorat **espartingintzan** lanean aritzerat jin zirenen historia. Herria

---

espartxatu, *espartxa(tu), espartxatzen* du *ad* **

Uztaiak **espartxatuz**, egurrezko gurutzeak eraikiz eta loratuz, etxeetako lehio, ate edo atarria apaintzen zen, iduzkia goresteko landareak ere baliatuz. Herria

---

espartzu **1** *iz* landare lekaduna, hari moduko hosto luzeak dituena*(Stipa tenacissima);* delako landarearen hostoak, sokak, saskiak eta kidekoak egiteko erabiltzen direnak.

Listurik barik, mihia **espartzua** baino lehorrago nuen. Edorta Jimenez

Kokotsean zituen bizar apurrak **espartzua** baino latzago, itsutuz doanaren mintz lodia begietan, falua barrura sartzean hatua hantxe jausi zitzaion, gure txanelera. Edorta Jimenez

Bordeleko galleta-kutxak, oheentzako **espartzua**, ardo- eta pattar-upelak baitzeramatzaten gudarosteentzat Baztango ibarrera. Koro Navarro

Plazatik igaro ziren: eliza eranskin eta konponketaz betea, eta burdinazko eta **espartzuzko** gauzak saltzeko postuak. Josu Zabaleta

Alde banatako kareletako toletetara loturik zeuden **espartzuzko** bela-sokak lasaitzen ari zen. Anjel Lertxundi

Soka baten **espartzuzko** hari askatu bat. Anjel Lertxundi

Espartzuzko kapazu handi bat ibiltzen zuen, eta argazki sorta bat atera zuen handik. Bernardo Atxaga

50 florin ordaindutako **espartzuzko** espartin batzuk astebetean baizik ezin izan nituen erabili, gero ez zidaten balio. Josu Zabaleta

Nola gogoratzen den, nola irudikatzen duen neska **espartzuzko** abarketak janzten, gurasoen esanei men eginez, errieta entzuten. Berria - Kultura

Zorua **espartzuzko** tapiz batek estaltzen zuen. Patxi Zubizarreta

Kolore hori leuneko paper pintatuak, solairua estaltzen zuen **espartzuzko** alfonbrak, haritz itxurako ulezko zamauak hoztasun apur bat ematen zioten. Karlos Zabala

Jakin behar baitu berorrek, areago direla algodoizkoak nire haragiak, **espartzuzkoak** baino. Patxi Ezkiaga

2 (izenondoekin)

Espartzu egokiarekin igurztea da, otutzen zaio, lapikoaren hondoan itsatsitako hondar beltzak erraz kentzen direla ohartu eta gero.Xede horrekin, zenbait egun lehenagotik, Domingok beratzen eta koipeztatzen ematen zuen **espartzu** latza, aiseago korri zezan urka-bi-lurrean barrena. Iñaki Iñurrieta

Listoiak jarri ondoren, **espartzu** espainiarrarekin egindako lokarriak erabiliz, zanpatutako kanabera greziarrak lotuko zaizkie, formak eskatzen duenaren arabera. Santiago Iruretagoiena

Gero garbitzaileei eskatu diet zerbitzua eta gizontzar batek goitik behera zarrantzatu nau **espartzu** moduko batez. Jon Arretxe

3 (hitz elkartuetan)

Espartzu zatiz egindako haiekin. Edorta Jimenez

Espartzu izpi batzuk jateagatik ez da inor hilko eta! Fernando Morillo

4 garbitzeko erabiltzen den espartzu zatia.

Ezari-ezarian, ordea, **espartzuari** eragitearekin batera, bestetara lerratzen zaio arreta: fitxak eskuz idazteko kontu hartara. Iñaki Iñurrieta

5 irud/hed

Espartzua nuen ahoan, eta sua eztarrian. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espartzua baino (3)

---

espasmo **1** *iz* borondatez kanpoko gihar uzkurtze bortitza.

Irudipena dut betazalen dardara txiki batek - **"espasmoa"** litzateke hitza- iragar dezakeela oihuka jartzen duen trantzearen hasiera. Ramon Saizarbitoria

Sukarrak joan ondoren, erabat ahuldurik geratu zen Luisito, eta ezusteko desatseginak ematen zizkion aldi oro familiari; egun batean berebiziko sukarra izango zen, hurrengoan **espasmoak**. Josu Zabaleta

Hipnositik **espasmora** pasatu zen minutu baten gorabeheran. Karlos Linazasoro

Baginako orgasmoa oraindik ez dela nahikoa, horrek baginako **espasmoak** bakarrik eragiten dituela. Luis Elberdin

Bihotzeko **espasmoa** izan du Ocalanek, baina jada egonkor dago. Berria - Mundua

Betazalak elkarrekin lotzen zitzaizkidan, **espasmoak** jota bezala. Koro Navarro

Zotin zarratuak gau eta egun astintzen zituen kirioak, eta **espasmoek** lohadarrak inarrosten zituzten, lehendik nekatuak akituz. Xabier Amuriza

Une horretan, gorputz guztiak batera erantzuten du, modu erreflexuan, automatikoan, kontrolik gabe, **espasmoekin**, atsegintasunez. Luis Elberdin

Intoxikazioa bizkorra izanik, **espasmorik** edo gonbitorik ez zion eragin, nonbait. Josu Zabaleta

Besoa diosal egiteko goratu zuenean, gehiegi altxatu zuen; **espasmo** edo postura zurrun batean gelditu zela zirudien: noizbait izandako estereotipoen zantzu bat, oihartzun bat edo. Xabier Olarra

Horiek **espasmoak**, horiek arnasa-ikarak! Jokin Muñoz

Azkeneko egunean, **espasmo** moduko bat izan zuen; ahotik aparra zerion. Koro Navarro

Gizon Handiaren ahotsa gora joan zen, glotisa erabat itxi eta edozein soinuri bidea ixten zion **espasmo** moduko batean, ez oso ozena haatik, lehertu zen arte. Jon Alonso

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Neskak hidropesia zuen, gonbitoak, disnea eta **espasmo** arin batzuk. Josu Zabaleta

Emakumea, atso zaharra, emamintza oraindik bere-berean, zoru baldosazkoan, **espasmo** gorritan. Karlos Linazasoro

Eskerrak prestu hurbildu zitzaizkion han ber-bertan zeuden bi katamotz, bestela **espasmo** gorrien artean hilko baitzen aurkezlea. Karlos Linazasoro

Espasmo azkar batek dardarizo batean jarri zizkion gorputz-atal guztiak. Lopez de Arana

Zein mozkor erotan murgiltzen zaituzten, zer nolako **espasmo** sutsuz astintzen zaituzten, zer samurtasun mugagabe, laztan, sarkor sartzen dizuten bihotz barneraino. Josu Zabaleta

Keinu nardagarri haiek eraginda, oka egin zuen **espasmo** arranditsu artean. Josetxo Azkona

Espasmo izoztu batek. Anton Garikano

Arnas estua, odoletan urea igo izanaren ondorioa seguruenik, geroz eta estuago ari zen bihurtzen; **espasmoak** geroz eta bortitzagoak ziren. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antzinakoek "umetokiaren herste edo itomena" esaten ziotena da, Aristotelesek, Galenok eta Pliniok aipatua, eta "organo horren gaitza da, eta emakumeek horretan **espasmo**-mugimenduak sentitzen dituzte eta eztarrian bola bat (globus hystericus) bezalako bat nabari uste dute, itoarazten dituena. Xabier Kintana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Oihu txikiak, plazer **espasmoak** eta enpatiazko hasperenak. Patxi Iturritegi

Hanketako azazkaletatik nola zihoakidan burmuineraino poz **espasmo** bat sekulako ziztuan. Fernando Rey

Oharkabeko gihar **espasmoak** saihesten ditu TCHak eta horregatik onuragarria izan daiteke bizkarrezurrean arazoak dituztenentzat. Berria - Harian

5 ***espasmozko*** *izlag*

Horixe zen, oharkabeko lehian gehien errepikatzen zuen **espasmozko** keinua: begiratzen zien une batez begietara inguruan zituenei, itzultzen zuen gero burua beste aldera, eta paretari kolpeka hasten zen berriro. Josu Zabaleta

---

espasmodiko *izond* espasmoarena, espasmozkoa.

Orgasmoa pubis kokzixetako giharren uzkurdura nahi gabekoa eta **espasmodikoa** da. Luis Elberdin

Gune horretatik baginako sarrerako giharrak edo zakilaren barrena inguratzen dutenak uzkurtzeko agindua bidaltzen da; uzkurdura **espasmodikoak**, erritmikoak, nahi gabekoak eta atseginezkoak dira horiek. Luis Elberdin

Eskertu egin zion begirada agureak, keinu **espasmodiko** batez. Unai Elorriaga

Berak halako algaratxo **espasmodiko** batzuk egin ditu, etsiak hartuta bezala. Patxi Iturritegi

Igartzerik izan ez zuen bakarra, ordea, zer, eta gertatu zen huraxe izan: Napoleonen armadaren atzera-aurrera zentzugabe eta **espasmodiko** huraxe. Juan Garzia

---

espasmodikoki *adlag* era espasmodikoan.

Gero barre egin genuen hirurok batera, izterrak **espasmodikoki** joz, noiz ezkerra noiz eskuina, perkusio-doinu benetan fina osatuz. Karlos Linazasoro

Harritzarra aise jaso zuen gerri pareraino, amen batean; behin hantxe eroso ipini zuelarik, hamalau txortaldi jo zizkion segidan, su eta fu, begiak zuri-zuri, mihia hortzartean dantzari, **espasmodikoki**. Karlos Linazasoro

---

espasmoka *adlag* espasmoz.

Ezin adierazizko etsipen eta larritasunaz jarraitzen zieten nire begiek penduluaren atzera eta aurrerako mugimenduei; **espasmoka** ixten zitzaizkidan betazalak beheraldi bakoitzean, heriotzak atsedena ekarriko zidan arren, eta nolakoa, ai! Koro Navarro

---

espasmotsu *izond* espamoz betea.

Doinu berria hasi orduko, jarrera barregarriren bat hartzen du Tomek (hanka bat luzatzen du, bestearen gainean finkaturik jirabueltak eginez) -jirabira luzeak- eskuen mugimendu **espasmotsuz** apainduak. Xabier Olarra

---

espatrapu ik **esparatrapu**.

---

espatsu *izond* espaz betea.

Jauna, Jainko **espatsu** eta mendekatzailea da. Elizen arteko biblia

Jauna, Jainko **espatsu** eta mendekatzailea da. Elizen arteko biblia

Jauna, Jainko **espatsu** eta mendekatzailea da. Elizen arteko biblia

---

espatula *iz* paleta tankerako tresna, argamasa zabaltzeko, azalerak garbitzeko eta kideko zereginetarako erabiltzen dena.

Goiok lata bat galipot bero ekarri zuen eta Juan Bautista gilaren gainean arrelepo jarrita hasi zen, **espatula** erabiliz, zulo txikiak eta zirrikituak betetzen. Gero, urez eta belakiz garbitu zituzten mahaiak eta aulkiak; Telemakok, idizainak eta zerrizainak **espatulaz** ondo garbitu zuten lurra. Joseba Sarrionandia

Gero, urez eta belakiz garbitu zituzten mahaiak eta aulkiak; Telemakok, idizainak eta zerrizainak **espatulaz** ondo garbitu zuten lurra. Juan Kruz Igerabide

Ez nuke jakingo esaten haren soak zer adierazten zuen, baina iruditu zitzaidan buru barrena **espatula** batekin aztakatzen zidala. Ramon Saizarbitoria

Ez bakarrik bikoiztu zituen Smith-en margolanetako baten itxura eta sentimendua, haren **espatula**-kolpe zakarrak, haren koloreztatze trinkoa eta han-hemenka halabeharrez barreiatutako tantak, orobat eraman zuen hura bere kabuz sekula iritsi izan zen baino amiñi bat harantzago. Oskar Arana

Esku handi, sendo eta fidagarriak zituen, hagitz marruskatuak eta lehorrak; azazkalak, berriz, motz-motzak eta garbi-garbiak, tresnatxo zorrotzen batez hain txukun garbituak, non muturrak bereizita baitzituen **espatula** -tankerako hatz-punta haietatik kanpo. Mirentxu Larrañaga

---

espazial *iz* espazioarena, espazioari dagokiona.

Aipatzeko modukoak dira Alien-en jaiotzarena, errealitate birtualarena, gerlari **espazialena** eta planeta ezezagunera egindako bisita. Berria - Kultura

Transbordadore **espazialak** alde batera utzi eta espazioa esploratzeari ekingo dio NASAk. Berria - Gaiak

Mozkorrak eman ohi duen argitasun ustezko horrekin, giza jokabideak oro ulertzen ditudala baina denak arrotz zaizkidala sentitzen dut, nire eskafandra **espazialaren** barrutik planeta bitxi horretako bizilagunei harrimenez eta errukiz so. Xabier Mendiguren Elizegi

Bidaia **espazial** pribatuen bitartez kontsumora bideratutako gizartearen eskaerari erantzun nahi izan diote. Berria - Gaiak

Jorge Oteizaren konposizio **espazialean** eta dinamikoan. Berria - Kultura

"Meta" hitzak "ondotik" adierazi nahi du, esanahi **espaziala** dauka, harrezkero beste esanahi bat eman arren, "trans" delakoa. Askoren artean

XII.-XIII. mendeetan, ekonomian eragina duten era askotako berrikuntzak nabari dira: nekazaritzan bezala merkataritzan (azokak Europan zehar); eta horrek jendearen mugikortasun **espazial** eta soziala bermatzen du. Askoren artean

Globalizazioa -dio- kapitalismoaren zabalkunde **espazialaren** adierazpena da. Iñaki Heras

Templek adierazten du goi-goiko maila ematen zuela haur-haurretatik test **espazial** eta ikusmenezkoetan, baina nahiko gaizki ibiltzen zela lan abstraktu eta sekuentzialetan. Xabier Olarra

Finitutasun **espazial** hau, ostera, infinitutasun tenporalez konpentsatzen dute. Xabier Amuriza

Ikusleak irudiarekin duen harreman **espaziala** funtsezkoa da. Josu Zabaleta

Argiaren banaketa **espaziala** : ikusmenezko ertzak. Josu Zabaleta

Liburuen nolakotasun **espazialak** ez bezalako betelan neurgaitz eta barreiatuagoa betetzen dute oihartzunek espazioan. Anjel Lertxundi

Ez da bilatzen, orduan, testutik pentsamendura pasatzea, berriketatik isiltasunera, kanpokotasunetik barrukotasunera, sakabanaketa **espazialetik** instantearen barnera biltzera. Xabier Arregi

Kontatutako historiaren erreferentzia historikoak eta **espazialak** . Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **espazial eta** (3)

---

espazialismo *iz* Italian sorturiko arte joera, espazioan gauzaturiko sentipen plastikoak sortzen aritzen dena.

Ez zuen korronte artistiko bakarra landu: kubismotik eta **espazialismotik** edan zuen, harik eta bere estilo propioa finkatu zuen arte. Berria - Kultura

Ibilbidearen hastapenean kubismoari eta **espazialismoari** eutsi zien. Berria - Kultura

---

espazialtasun *iz* espaziala denaren nolakotasuna.

Forma filmiko batzuek **espazialtasuna** gehiago lantzen dute denborazkotasuna baino. Josu Zabaleta

Jarrera moral horrek, orduan, bietan inkontzienteena herrestatzen du **espazialtasun** huts baterantz, non deskonposatzen baita bere osagarri primario eta kakotuetan. Xabier Olarra

---

espazio 1 *iz* diren gauza guztiak dauzkan zera; zer horren zernahi zati.

Espazioak hiru dimentsio ditu. Ibon Uribarri

Hiru dimentsioko **espazioan** . Xabier Olarra

Ikusmena **espazioari** dagokion zentzumen bat da, lehenik eta behin. Josu Zabaleta

Espazioa eta denbora, adibidez, Kanten aurretik, edo objektu absolutuak ziren, hots, **espazio** eta denbora absolutuak ziren, edo gauzen arteko harremanak ziren, egoera, urrunera eta antzekoen gisa. Ibon Uribarri

Koadro bat marraztu du, lerro bertikalez erdibitu du koadroa eta, bi marra horizontal eginez, sei **espazio** utzi ditu koadro barruan. Joseba Sarrionandia

Hala omen dira loft-ak, **espazioak** , ezen ez gelak. Harkaitz Cano

Urruntasunak denboraren **espazioa** murrizten dit. Piarres Aintziart

Espazioaren antolamendua egitura matematiko batera atxiki daiteke. Josu Zabaleta

Espazioari dagokionez, berau ez da nonbait edukia, edukitzailea baizik. Xabier Kintana

Sakontasunari eta **espazioari** dagokienez, arautzat eman daiteke adierazle estatiko guztiek dituztela adierazle dinamiko baliokideak. Josu Zabaleta

Astronomiak halaber **espazioan** bananduak dauden banakoekin, astroekin operatzen du. Isabel Arrigain

Substantzia guztiak, **espazioan** aldi berean hauteman ditzakegun heinean, elkarrekintza osoan aurkitzen dira. Ibon Uribarri

Eremuaren ideia irudian irudikatzen den hiru dimentsioko **espazioarekin** ez baina irudiaren gainazaleko bi dimentsioko **espazioarekin** lotzen bada. Josu Zabaleta

Fikziozko hiru dimentsioko **espazio** bat, irudimenezkoa. Josu Zabaleta

Espazioa norabide guztietan mugarik gabea izatea nahi du Euklidesek. Jon Muñoz

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Espazio konkretua, **espazio** abstraktua. Josu Zabaleta

Espazio irekia, **espazio** itxia. Josu Zabaleta

Hiru bezerok ia guztiz betetzen zuten mostradore aurreko **espazio** urria. Josu Landa

Aristotelesek ez du hutsunea onartzen, horren existentziak, **espazio** hutsaren ideiak, zentzurik ez daukalako harentzat. Askoren artean

Irudi horrek irudikatzen duen eremutik abiatuta, gogora daitekeela eremu hori hartu den **espazio** osoa. Josu Zabaleta

Mundua, halako baseball pilota izotz zuriz beztituaren moduan eroriko da **espazio** amaigabeetan barrena. Joseba Sarrionandia

Idealistek argudiatzen dute sala hexagonalak **espazio** absolutuaren molde ezinbesteko direla edo, gutxienez, **espazioaz** dugun intuizioarena. Juan Garzia

Eremua **espazio** sakon bat da, baina gainazal plano batean irudikatua. Josu Zabaleta

Gure eskalan, **espazio** fisikoa aski zehatz deskriba daiteke eredu erraz eta antzinako batez, bina-bina elkarren perpendikularrak diren hiru koordenatu (koordenatu "kartesiarrak") ardatzekiko geometriaren bidez. Josu Zabaleta

Paradisua ikusten du Oteizak harrespilen **espazio** erlijiosoan. Anjel Lertxundi

Bereizkuntza honek **espazio** plastikoaren, **espazio** profilmikoaren eta **espazio** diegetikoaren bereizkuntza errepikatzen du neurri handi batean. Josu Zabaleta

Planeta mailako integrazioaren ondoren eraturiko **espazio** ekonomikoa, hasieratik bertatik, oso **espazio** hierarkizatua izan zen. Koro Navarro

Espazio kolonialen periferizazio-prozesuetan. Koro Navarro

Perspectiva artificialis-ari dagokionez, Berpizkundean **"espazio** sistematikoa" (matematikoki ordenatua, infinitua, homogeneoa, isotropoa) azaldu zenean egin zen posible. Josu Zabaleta

Bonitzerren iritzian, lehen planoa "dramaren, filmeko eszenaren osagarri bat da, haren hasierako osotasuna eteten baitu" eta **"espazio** filmikoaren jarraitasunik eza azpimarratzen du, eta ikusmena, irudia, idazketaren ordezko mugimendu batera eramaten du". Josu Zabaleta

Espazio zinematografikoaren izaera bitariko hori. Josu Zabaleta

Espazio irudikatuaren pertzepzioan azaleraren pertzepzioa hartzen baita kontuan. Josu Zabaleta

Espazio nazioaniztunean barreiaturiko baliabide naturalak. Koro Navarro

Espazio periferikoaren heterogeneotasuna. Koro Navarro

Hiru lerro zuzen behar dituzue **espazio** lerrozuzen bat mugatzeko. Jon Muñoz

Europar **espazioaren** ezaugarri den pluralismo politikoak bereizten ditu mundu-ekonomia eta inperioa. Koro Navarro

Badirudi ukimenak aurrea hartzen diola ikusmenari, ukimenezko **espazioak** aurrea hartzen diola ikusmenezko **espazioari**. Josu Zabaleta

Francastelek luzaro aztertu du, irudiarekiko erlazioari dagokionez, zer dagokion irudimenezko **espazioaren** eraikuntza aktiboari. barne-merkatu bateratuek osatzen duten konkurrentziazko **espazioan**. Josu Zabaleta

Gaur egungo antzerkiko eszenatokia perspektibazko **espazio** bat bezala sortu zen. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espazio - eta denbora-mugen barruan. Iñaki Mendiguren

Har dezagun hemen ondoko 9. irudi hau: irudi plano bat erakusten du, baina inolako nekerik gabe ikusten dugu irudi horretan **espazio**-antolamendu bat. Josu Zabaleta

Denbora-dimentsioko kontraste hau **espazio**-dimentsioan ere agertzen da Pinturaren ilusio partziala, hain zuzen, baliabide hori bereziki egokia baita **espazio**-sakontasunaren ilusioa eragiteko. Iñaki Mendiguren

Espazio-erlazio jakin batzuek egon beharko dute osagarri horien artean, giza irudi bezala ezagutu ahal izateko. Josu Zabaleta

Aurreneko ardatzak nazioarteko mailako integrazioaren eta baztertzearen arteko dialektika definitzen du, eta kapitalismoaren **espazio**-zabalkundearen ondorioei dagokie. Koro Navarro

Espazio-adierazle guztiak aurkituko dira, beraz, hemen: estatikoak (perspektiba, adibidez), dinamikoak (irudiak mugimendurik badu gertatzen den mugimenduaren paralaxia, adibidez). Josu Zabaleta

Matematikan **espazio**-erlazioen azterketa baizik ez da topologia. Josu Zabaleta

Espazio-kualitate iraunkorrak. Josu Zabaleta

Espazio plastikoaren eta ikuslearen **espazioaren** artean **espazio**-banakuntza bat gertatzen dela. Josu Zabaleta

Dena batera hartuta, bada, garbi dago **espazio**-ikuspena askoz ere jarduera konplexuagoa dela berehalaxe aztertu behar dugun erretinaren "argazkia" baino. Josu Zabaleta

Espazio-eskala bat ematen duen testuinguru batean. Josu Zabaleta

Ondo definitutako **espazio**-denborazko esparru bateko gertaera guztien artean. Xabier Arregi

NASA **espazio** agentzia. Patxi Iturritegi

Afera horrek NASAren publizitatearekin du, itxura batean, zerikusirik handiena, Martera egin asmo dituzten **espazio**-hegaldiak direla eta. Juan Garzia

James Wetherbee komandanteak objektu bat detektatu du Nazioarteko **Espazio** Estazioaren norabide berean. Patxi Iturritegi

SMSetan, aldiz, **espazio**-mugak erretorikoak baino mekanikoak diruditen estrategien bidez gainditzen dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Askotariko teorien, makinen, lanabesen, gertakarien, praktiken, aktoreen eta giza harremanen arteko elkargune-**espazio** bilakatzen da zientzia. Askoren artean

Francastelentzat, irudikapen-**espazioa** geometriaren eta gizarte baten mitoen arteko sintesi bat da egiaz. Josu Zabaleta

Arnheimek askotan proposatu izan du irudikapen-**espazioa** geometria kartesiar objektiboaren arabera ez baina koordenatu polarrezko geometria subjektibo baten arabera definitu beharko litzatekeela. Josu Zabaleta

Espazio plastikoa, ikuskizun-**espazioa**. Josu Zabaleta

Kontaketa **espazioan**. Josu Zabaleta

Demokraziak gizartean indiferentzia **espazioak** maite ditu: indiferentzia ideologikoa edo neutraltasun erlijiosoa bereziki. Joxe Azurmendi

Antolamendu perspektibistako gizarte-**espazioari** antolamendu "topologiko" horretako **espazio** genetikoa gehitzen zaio. Josu Zabaleta

Diru-konkurrentziak finantza-**espazio** integratu batean sortutako arazoak. Koro Navarro

Lanaren nazioarteko banaketa estatu-**espazio** bakarrean gertatzen da. Koro Navarro

Nazio-**espazio** bakoitzaren baitan botere politikoa zentralizatu izanaren ondorioz. Koro Navarro

Barne-**espazio** zabal bat dago, irekitzen hasia, eta gizarteegiturak eta estatuaren aparatuak mantso-mantso berregiten dira bertan. Koro Navarro

Kanpokotasun-**espazio** bat da, non hedatzen den kokapen ezberdinen sare bat. Xabier Arregi

5 *espaziozko izlag*

Gertaera batek **espaziozko** dimentsioa izango du, Arnheimen iritzian, hura pertzibitzeko multzo bat atzeman behar baldin bada. Josu Zabaleta

Orain arteko guztian, esan gabe bazen ere, **espaziozko** dimentsioan hartuta hitz egin dugu irudiari buruz. Josu Zabaleta

Ikusleak irudiarekin duen harreman "existentzialak" badu, beraz, espaziozkotasun bat, oro har **espaziozko** egitura orokorrari egotz dakiokeena. Josu Zabaleta

Oroimenaren egitura **espaziozkoa** gehiago da, Arnheimentzat, denborazkoa baino. Josu Zabaleta

6 *espazio ontzi* ik espaziontzi.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aebetako espazio (12); **aebetako espazio agentziak** (5); **aebetako espazio agentziaren** (5); **arteko espazio** (6); **baina espazio** (4); **batuetako espazio** (67); **batuetako espazio agentziak** (27); **batuetako espazio agentziako** (10); **batuetako espazio agentziaren** (24); **bere espazio** (9); **beste espazio** (13); **beste espazio bat** (6); **bi espazio** (5); **cassini espazio** (10); **cassini espazio zunda** (6); **da cassini espazio** (4); **da espazio** (6); **dagoen espazio** (5); **den espazio** (13); **denbora eta espazio** (7); **dira espazio** (4); **diren espazio** (4); **du espazio** (10); **duen espazio** (14); **dute espazio** (4); **duten espazio** (6); **edo espazio** (7); **errusiako espazio** (15); **errusiako espazio agentziak** (5); **errusiako espazio agentziako** (4); **esa europako espazio** (26); **espazio agentzia** (9); **espazio agentziak** (74); **espazio agentziak atzo** (7); **espazio agentziak esa** (9); **espazio agentziak nasa** (8); **espazio agentziako** (37); **espazio agentziako esa** (4); **espazio agentziako zientzialariek** (6); **espazio agentziaren** (55); **espazio agentziaren arabera** (4); **espazio agentziaren esa** (6); **espazio agentziaren mars** (4); **espazio agentziaren nasa** (5); **espazio agentziaren opportunity** (4); **espazio agentziaren spirit** (4); **espazio bat** (40); **espazio batean** (11); **espazio baten** (6); **espazio berean** (10); **espazio berri** (4); **espazio berriak** (10); **espazio denbora** (5); **espazio denborazko** (8); **espazio edo** (4); **espazio ekonomikoaren** (7); **espazio errealak** (5); **espazio estazioa** (9); **espazio estazioak** (5); **espazio estazioan** (14); **espazio estazioaren** (4); **espazio estazioko** (13); **espazio estaziora** (11); **espazio estaziorako** (5); **espazio estaziorako bidean** (4); **espazio estaziotik** (4); **espazio eta** (25); **espazio eta denbora** (11); **espazio falta** (5); **espazio gaietarako** (5); **espazio guztia** (5); **espazio handi** (4); **espazio honetan** (4); **espazio hori** (22); **espazio horiek** (5); **espazio horrek** (5); **espazio horren** (5); **espazio horretan** (13); **espazio huts** (7); **espazio hutsa** (6); **espazio ikerketarako** (4); **espazio ireki** (6); **espazio irekia** (4); **espazio kapsula** (4); **espazio kapsulak** (8); **espazio kaskala** (4); **espazio osoa** (7); **espazio plastikoaren** (4); **espazio politiko** (10); **espazio politikoa** (9); **espazio propioa** (7); **espazio publikoaren** (5); **espazio sozio** (4); **espazio teleskopioa** (10); **espazio teleskopioak** (7); **espazio zabal** (11); **espazio zunda** (12); **espazio zundak** (13); **espazioa hubble espazio** (4); **espazioa nazioarteko espazio** (4); **estatu batuetako espazio** (67); **eta espazio** (49); **europako espazio** (94); **europako espazio agentziak** (33); **europako espazio agentziako** (21); **europako espazio agentziaren** (25); **gabeko espazio** (7); **gure espazio** (6); **horretan espazio** (4); **hubble espazio** (13); **hubble espazio teleskopioa** (9); **hubble espazio teleskopioak** (4); **iss nazioarteko espazio** (9); **munduko espazio** (6); **munduko espazio ekonomikoaren** (4); **nazioarteko espazio** (55); **nazioarteko espazio estazioa** (7); **nazioarteko espazio estazioan** (12); **nazioarteko espazio estazioaren** (4); **nazioarteko espazio estazioko** (9); **nazioarteko espazio estaziora** (8); **nazioarteko espazio estaziorako** (4); **nazioarteko espazio estaziotik** (4); **oso espazio** (6); **stardust espazio** (5); **zituen espazio** (4); **zuen espazio** (4); **zuten espazio** (4)

abiatuko da espaziora (4); **aire espazioa** (4); **arteko espazioa** (4); **bat espazioan** (6); **batuetako espaziorako** (7); **batuetako espaziorako agentzia** (4); **bere espazioa** (5); **bidali zuten espaziora** (4); **da espaziora** (7); **den espazioa** (4); **denbora eta espazioa** (17); **denbora eta espazioaren** (10); **denboran eta espazioan** (18); **denboraren eta espazioaren** (10); **dira espazioan** (5); **du espazioan** (5); **du espazioaren** (4); **duen espazioa** (6); **duten espazioak** (5); **edo espazioa** (6); **edo espazioan** (4); **egiteko espazioa** (4); **espazioa atzemateko** (5); **espazioa bera** (12); **espazioa betetzen** (5); **espazioa da** (7); **espazioa ere** (5); **espazioa eta** (78); **espazioa eta denbora** (60); **espazioa ez** (11); **espazioa ez da** (7); **espazioa gure** (4); **espazioa hubble** (4); **espazioa hubble espazio** (4); **espazioa izan** (6); **espazioa izango** (5); **espazioa kanpoko** (7); **espazioa nasak** (5); **espazioa nazioarteko** (4); **espazioa nazioarteko espazio** (4); **espazioa saturnoren** (4); **espazioak eta** (15); **espazioak eta denborak** (8); **espazioan barrena** (6); **espazioan dagoen** (4); **espazioan dauden** (8); **espazioan edo** (7); **espazioan edo denboran** (7); **espazioan eta** (41); **espazioan eta denboran** (34); **espazioan ez** (8); **espazioan gertatzen** (6); **espazioan gertatzen den** (4); **espazioan zehar** (8); **espazioaren arabera** (4); **espazioaren artean** (5); **espazioaren arteko** (5); **espazioaren eta** (50); **espazioaren eta denboraren** (39); **espazioaren zati** (5); **espazioari buruz** (5); **espazioari buruzko** (9); **espazioari dagokion** (4); **espazioari dagokionez** (12); **espazioari eta** (4); **espazioaz eta** (4); **espazioen arteko** (4); **espazioko zulo** (4); **espaziora bidali** (4); **espaziora bidaltzeko** (4); **espaziora**

egindako (4); **espaziorako agentzia** (5); **espaziorako agentzia nasak** (4); **espaziorik ez** (6); **espaziotik ikusten** (6); **estatu batuetako espaziorako** (7); **eta espazioa** (34); **eta espazioa eta** (4); **eta espazioak** (11); **eta espazioan** (40); **eta espazioarekin** (4); **eta espazioaren** (46); **eta espazioaren artean** (4); **eta espazioari** (8); **eta espazioaz** (4); **eta espazioko** (9); **ez espazioan** (6); **fikziozko espazioak** (4); **handia espaziotik** (4); **handia espaziotik ikusten** (4); **harresi handia espaziotik** (4); **objektuak espazioan** (7); **zuten espaziora** (5)

---

espazioaldi *iz* espazioan pasatzen den aldia.

James McDivitt-ek eta Edward White-k eskuetako eta oinetako hezur batzuen masaren % 10 baino gehiago galdu zuten 1965eko ekaineko Gemini IV misioan. Gemini V misioan -zortzi eguneko **espazioaldian** - % 20 baino handiagoko galerak izan ziren zenbait hezurretan. Irene Aldasoro

---

espaziontzi *(orobat **espazio ontzi** g.er. eta **espaziuntzi** g.er.) iz* espazioan dabilen onzia.

Iduri zuen 27. gela gero eta urrutiago zegoela mundutik, **espaziontzi** bat zela urruneko orbita batean. Bernardo Atxaga

Apolo dagoeneko ez da jainko greziar bat, Ilargira heldu den **espaziontzia** baizik. Patxi Zubizarreta

Soyuz TMA-3 **espaziontzia** atzo goizaldeko 04: 11etan lurreratu zen Kazajistango estepetan. Berria - Gaiak

Gaur goizean jarriko da Artizarraren orbitan Europako Espazio Agentziaren (ESA) Venus Express **espaziontzia**. Berria - Gaiak

Normalean automatikoki egiten da **espaziontziaren** eta ISS estazio orbitalaren elkarketa. Berria - Gaiak

Hilaren 17an **espaziontzi** bat bidaliko du NASAk Pluton eta Karonte aztertzera; bide luzea egin beharko du, 2015ean helduko da planeta urrunera, zerumuga berrien bila. Berria - Gaiak

Espaziontziak areago egin zuen beheraka, baina oraingoan erorketa librean. Bernardo Atxaga

Lurra jo genuen, eta **espaziontzia** txikitu egin zen. Bernardo Atxaga

Arcturus izar-sisteman piztutako gerraren ondoren ihes egindako lehenengo **espaziontzien** etorrera, 40ko hamarkadan zehar. Iban Zaldua

Tristurak airean flotatzen zuen, **espaziontzietan** grabitate faltagatik edalontzietatik ihes egindako isurkariek bezala. Mikel Hernandez Abaitua

Lehen **espaziontzi** pribatua prestatzen ari dira espaziora bidaltzeko. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
du espaziontziak (3); **espaziontzi bat** (7); **espaziontzi pribatua** (4); **lehen espaziontzi pribatua** (3); **spaceshipone espaziontzia** (4)

---

espazioratu, espaziora(tu), espazioratzen du *ad* espaziora bidali.

18 hilabeteko epean Gobernuak satelite bat **espazioratuko** duela jakinarazi zuen atzo Ali Chamjani Irango Defentsa Ministroak. *Stardust* espazio kapsula 1999ko otsailean **espazioratu** zuten Kennedy espazio zentrotik. Berria - Gaiak

Maiatzean **espazioratu** nahi zuten transbordadorea, baina gailua aldatzeko, hiru aste beharko ditu NASAk. Berria - Gaiak

Okerrik ezean, gaur goizeko 08:30ean **espazioratuko** du ESA Europako Espazio Agentziak Rosetta zunda. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espazioratu zuten (3)

---

espazioratze *iz* espaziora bidaltzea.

Eisenhower, Ameriketako Estatu Batuetako presidente izandakoaren hitzak dira (hainbat pistola, gerraontzi eta **espazioratze** programa abian jarri zituen presidentea, bide batez esanda). Iñaki Heras

---

espaziotasun *iz*

Denbora- **espaziotasun** geroagoko batean, han zebilen saintlazareplazeratzen asma-ezak-nor-zen batekin, eta hala ziotsan besteak. Xabier Olarra

---

espaziotsu *izond* hedatsua, nasaia.

Kobazuloak, ordea, zabalduz zihoan beti ere, eta estalaktitaz eta estalagmitaz betetzen; Cortok bere farola altxatu, eta gela eder eta **espaziotsu** batean zeudela ikusi zuen. Iban Zaldua

Kobazuloak, ordea, zabalduz zihoan beti ere, eta estalaktitaz eta estalagmitaz betetzen; Cortok bere farola altxatu, eta gela eder eta **espaziotsu** batean zeudela ikusi zuen. Iban Zaldua

Haren begiak bi leiho ziren, espaziorik **espaziotsuenetarat** jotzen zutenak, non bozkarioak hats har baitzezakeen eta ditxak eta felizitateak dantza. Joan Mari Irigoien

---

espaziotxo *iz* espazio txikia.

Badakigu ez garela alderdi nagusi bat, baina gure **espaziotxoa** dugu. Berria - Euskal Herria

---

espaziozkotasun *iz* espazioari dagokionaren nolakotasuna.

Ikusleak irudiarekin duen harreman "existentzialak" badu, beraz, **espaziozkotasun** bat, oro har espaziozko egitura orokorrari egotz dakiokeena; eta badu, horretaz gainera, denborazkotasun bat ere, irudikatzen diren gertaerei eta haietatik ondorioz ateratzen den denborazko egiturari egotz dakiokeena. Josu Zabaleta

---

espaziuntzi ik **espaziontzi**.

---

espediente 1 *iz* gai bati edo pertsona bati buruzko dokumentuen multzoa; orobat dokumentuak dauzkan karpeta. ik **dosier**.

Nire **espedientea** irakurtzen ari da, oharrak eginez. Koldo Izagirre

"Ardura gehiegizkoa bere egitekoan aritzean" idatzi zuten Udaltzaingoak ireki zuen **espedientean**. Aingeru Epaltza

Iaz, 811 **espediente** kudeatu zituen Hizkuntz Eskubideen Behatokiak: 729 kexa, 38 zoriontze, 20 zehaztu gabeko, 16 kontsulta eta 8 prebentzio ekintza. Berria - Harian

Arartekoaren ekimenak: 33 **espediente** abiatu ziren iaz erakundearen beraren ekimenez. Berria - Harian

Espedientea zabaldu diete 150 gramo lehergailu maleta batean sartu zuten bi jendarmeei. Berria - Mundua

Horrelako gutun bat guztiz arriskugarria izango zela zure ikaslea nintzen bitartean, aski izango bainuen errektoregoan erakustea zure kontrako **espediente** bat zabaltzeko, eta hortik aurrerako guztiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Enplegua erregulatzeko **espedientea** luzatzen badute, aurrekoen baldintza berberetan ezarriko dute. Berria - Ekonomia

Portugalen aurkako **espedientea** ixtea proposatu zuen, defizit publikoa %3ko mugatik jaistea lortu duelako. Berria - Ekonomia

Aurretik immigrazio kontuekin zerikusia zuten gaiengatik **espedientea** egin zioten. Berria - Euskal Herria

Hala dago jasoa **espedientean**. Berria - Harian

Maite Larburuk bere **espedientea** aurkeztu du eta epaimahaiak aho batez erabaki du 12.000 euroko beka ematea. Berria - Kultura

Espedienteak dioenez, Juan Luque Arenas guardia zibilak atxilotu zituen Berniard eta Lauaxeta. Berria - Harian

Kontua da neure **espedientea** Bartzelonara aldatzeko batez besteko nota altu samarra behar nuela. Joxerra Garzia

Presoaren **espedientea** informazio gordea da, konfidentziala, presondegietako arduradunek bakarrik erabiltzekoa. Koldo Izagirre

Epaitegira noa nire **espedientearen** bila, eta eskaera bat egin dezadala idatziz. Agurtzane Juanena

Berorrek badaki gure **espedientea** airean gelditu dela Garibairen arima bezala eta orain uso baten moduan egongo dela jarrita hiri eraginkor honetako teilaturen batean? Anjel Lertxundi

Zuek biok beste istiluren batean harrapatuz gero, kanporatu egingo zaituztete; nik, ordea, garbi dut **espedientea**. Iñaki Mendiguren

Haren **espedientea** ez zegoen erabat garbi. Iñaki Mendiguren

ARB 1993/2000 **espedienteak** Bretainiako Armada Iraultzaileari leporatutako berrogei atentatu eta atentatu saio biltzen ditu. Berria - Mundua

Espedienteak aurrera egiten badu, Nafarroako Volkswagenek urtean 21 egunez 4.500 langileri kontratua eteteko eskubidea edukiko luke, nahiz eta oraindik zazpi eguneko malgutasun poltsa baduten. Berria - Ekonomia

Horri 10.000 euroko soldata osagarria gehituko zaio **espediente** bidez kaleratutako langileentzat. Berria - Harian

Fedosei Fedoseievitx, ekarri 368 **espedientea**! Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bakoitzaren jaioteguna, helbidea, aita-amen izenak, horien lanbidea, haurrideak, **espediente** akademikoa, zaletasunen eta izaeraren gaineko iruzkinak, [...]. Aingeru Epaltza

Jaurlaritzako Industria Sailak **espediente** zigortzailea irekiko dio *Electroquimica de Hernani*ri. Berria - Euskal Herria

Txostenak erakusten du Irango **espediente** nuklearra bukatzear dagoela eta garrantzia handirik gabeko zenbait arlo tekniko soilik geratzen direla. Berria - Mundua

Komisarioak ez zuen inoiz arantza hura bere **espediente** izpiritualetik aterako. Harkaitz Cano

Trenbidean barrena saltoka joan zen udaletxera batxilerreko **espedienterik** onena zeukalako Paulino Caballero saria eman behar ziotenean, eta airean itzuli zen bide beretik, alkateak ziurtatu zionean ikasketak jarraitzeko diru-laguntza izango zuela. Arantxa Iturbe

Ladinamo promotoraren aurkako **espedientea** ere hasi du aipatutako sailak. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Galdetzeko abokatuei zer **espediente** zenbaki daukan istorioak. Agurtzane Juanena

Gaur egun beste era bateko jazarpena abiatu dute, hor dago Iñaki de Juanari bi iritzi artikulu idazteagatik ezarri nahi dioten kondena berria, Unairi ezarri nahi dioten kondena luzapena, kaleratzeko puntuan direnei egiten dizkieten **espediente** berrikusketak. Jokin Urain

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berlusconik presio egingo dio Ekofini maiatzaren 11ko bileran ohar-**espedientea** bertan behera utz dezan. Berria - Ekonomia

31 emakumeri kanporatze **espedientea** ireki zieten eta aske utzi zituzten; gainontzeko hirurak, ordea, Madrilera bidali zituzten, kanporatzeko, lehendik ere kanporatze agindua baitzuten. Berria - Euskal Herria

Enpresak neurri gogorrak hartu zituen: langile murrizketak, kaleratze **espedienteak** eta, azkenean behin betiko itxiera. Berria - Ekonomia

Ikerketa mota horiek, hala ere, oso gutxitan dakarte akademi **espedientearen** irekiera. Iban Zaldua

Odon Elorza Donostiako alkateak «ergelkeriak egiteari» uzteko eskatu zien protestagileei, eta abisu eman zien informazio **espedienteak** zabalduko dizkiela. Berria - Ekonomia

Hurrengo astean kazetariak erregulazio **espedientea** eskatzeko prozesuan sartuko dira eta, hortik aurrera, zorrak kitatuko ditu enpresak. Berria - Euskal Herria

Bestetik, duela egun batzuk Newelleko sindikatuek enpresaren itxierarako beharrezkoa zen enplegu-erregulazio-**espedientea** sinatu zuten. Berria - Ekonomia

Ez da ikerketa **espediente** bakarra; Izarrek 1.500 milioi euro itzuli beharko dizkio gobernuari. Berria - Ekonomia

Enplegu **espedienteak** zabalduak ditu, desagertzera deituta dago ez ordea langileen batzarrak istilurik sortu gabe. Berria - Kultura

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak 15 zigor **espediente** (14 arraunlariei eta Jose Manuel Francisco entrenatzaileari) ireki zituen, «Hondarribian egin zen dopinaren aurkako kontrola trabatzeagatik». Berria - Kultura

Bi aste egin nituen zigor-**espedientearen** jakinarazpenaren esperoan. Aingeru Epaltza

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Volkswagen-Nafarroako zuzendaritzak atzera bota zuen atzo langile guztiei eragin behar zien erregulazio **espediente** eskaera. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako espedientea (5); **baino espediente** (3); **batzordeak espedientea** (3); **eguneko espedientea** (3); **enplegu erregulazioko espedientea** (3); **enplegua erregulatzeko espedientea** (5); **ere espedientea** (4); **ere espedientea ireki** (3); **erregulatzeko espedientea** (5); **erregulazio espediente** (7); **erregulazio espediente eskaera** (3); **erregulazio espedientea** (33); **erregulazio espedientea aurkeztu** (4); **erregulazio espedientea ezarri** (4); **erregulazio espedienteak** (7); **erregulazio espedienteak** (7); **erregulazio espedienteari** (9); **erregulazio espedienterik** (4); **erregulazioko espedientea** (6); **erregulaziorako espedientea** (4); **espediente bat** (11); **espediente ireki** (6); **espediente ireki ditu** (3); **espediente zigortzaile** (4); **espedientea aurkeztu** (12); **espedientea aurkeztu du** (4); **espedientea aurkeztu zuen** (4); **espedientea aurkeztuko** (4); **espedientea aurrera** (3); **espedientea da** (3); **espedientea ez** (6); **espedientea ezarri** (4); **espedientea ireki** (20); **espedientea ireki dio** (4); **espedientea ireki zien** (4); **espedientea irekiko** (6); **espedientea irekitzea** (4); **espedientea irekitzeko** (3); **espedientea onartu** (3); **espedientea zabaldu** (23); **espedientea zabaldu die** (3); **espedientea zabaldu dio** (4); **espedientea zabaldu zion** (4); **espedientea zabaltzea** (6); **espedientea zabaltzea erabaki** (5); **espedienteak aurrera** (3); **espedienteak aurrera** (3); **espedienteak bertan** (4); **espedienteak bertan** (4); **espedienteak bertan behera** (4); **espedienteak bertan behera** (4); **espedienteak ireki** (3); **espedienteak ireki** (3); **espedienteak zabalduko** (3); **espedienteak zabalduko** (3); **espedienteari alegazioak** (3); **espedienteari buruzko** (3); **espedienterik ez** (3); **eta espedientea** (6); **hiru espediente** (3); **zigor espediente** (3); **zigor espedientea** (14); **zigor espedientea ireki** (3); **zigor espedientea zabaldu** (5); **zigor espedienteak** (10); **zigor espedienteak** (10)

---

espedizio *(orobat **espedizione** g.er. eta **expedizio** g.er.)* **1** *iz* egiteko zientifiko, militar edo kideko bat zertzeko antolatzen den bidaldia; horrelako bidaldi batean parte hartzen duen lagun taldea.

1910 eta 1917 urteen arte horretan, bi **espedizio** antolatu zituen Knudek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bi urtez prestatu dute **espedizio** hori, mendian trebatuz, bainan ere dirua bilduz: alabainan, **espedizio** hori 50.000 euro gostako zaiote. Herria

Espedizioa osatzen zuten lau ontzietatik bi baino ez zitzaizkien geratzen, eta bi hauek ere ez ziren nabigatzeko gauza. Martin Anso

Espedizioek porrot egin dute, eta, gainera, elkarren artean haserreak eta liskarrak hasi dira. Luis Elberdin

Ikerketa-ildo hau ixten da Taigher desagertzen denean, Ipar Polora doan **espedizio** batean izena emanda. Jon Alonso

Azkenean Trujilloren kontrako **espedizioarena** iraganeko kontu zaharra izatera igaro zen. Edorta Jimenez

Khivatik Txinako mugaraino matxinatuta dagoen eskualdea gurutzatu behar du **espedizioak**! Karlos Zabala

Ez dut esango gure **espedizioa** Scott kapitainak bere egunkarian deskribatu zuen hura bezalakoa izan zenik. Bernardo Atxaga

Nire pentsamenduak isilean gordetzen nituen, ezinbestean, **espedizioko** kideek ez baitzuten hitz egiteko batere gogorik erakusten. Bernardo Atxaga

Espedizioetako egunerokoek bi helburu zituzten: hala behar izanez gero, itzulerako bidea errazago aurkitzea eta, zoriak hala nahirik fin gaitz eginez gero, ondoren zetozenei zertan huts egin zuten lekukotasuna uztea. Joxean Agirre

Espedizioan doazen zientzialarietako bat gaixorik zagok eta ingelesez dakien erizaina behar ditek bera zaintzeko. Joseba Sarrionandia

Maitasunean ere, itsasoaz gaindiko **espedizioetan** bezala gertatzen dela: konkista zirraragarria dela eta kolonizatu nahiak galtzen gaituela beti, baina hoa popatik esango zenioke zuk horri, hi, hoa popatik. Harkaitz Cano

Xabier Ormazabal 23 urteko urretxuar gaztea euskal **espedizio** batekin joana zen harat. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Espedizio militar batean parte hartu nahi izan zuen, ospearen bila. "Gurutzada" terminoa normalean Mendebaldeko **espedizio** militar jakin batzuetara mugatzen da. Askoren artean

Taigher zen, Mendizale edo Pioletadun Hiltzailearen bila ibili nintzenean, mendizaleen artean ezagutu nuen hura, gero Patagoniara edo Ipar Polora **espedizio** zientifiko batean joan omen zena. Jon Alonso

Herri horrek, maiz gerrara soldatarik gabe joatera behartua, oso maiz izaten zuela mailegutan hartzeko premia eta, **espedizio** arrakastatsuak etengabe egiten zituenez, maiz zuela ordaintzeko modua. Iñaki Iñurrieta

Perry komodoro amerikarraren 1853-1854ko **espedizio** famatuen ondoren Japoniaren subiranotasunak pairatzen zuen mehatxua zela-eta, zentralizazio-politika abian jartzea eta nazio barneko ekonomia liberalizatzea izan zen japoniarren erreakzioa. Koro Navarro

Horretan eurekin batera K-2ra igotzen ari zen **espedizio** italiarraren jarrera «txalogarria» izan zela nabarmendu du. Berria - Kirola

Nagusiari kontatu zion Martinek bere burua eskaintzen zuela **espedizio** zail hura egiteko, alegia, alde karlistan sartu eta letra izenpetuekin itzultzeko. Koro Navarro

Ez da batere zaila iberiar monarkiek babesturiko **espedizio** ugarien atzean italiar merkatarien arrastoa bilatzea. Koro Navarro

Nazioarteko **espedizioak**, baina, oztopo ugari gainditu behar izan ditu. Berria - Gaiak

Eguberri bezperan, andreak eta biok presako **espedizioa** antolatu genuen merkataritza zentro erraldoi ireki berrira. Aingeru Epaltza

1938ko apirilean, Himmlerren aginduz, Ahnenerbek isilpeko **espedizio** bat antolatu zuen. Alberto Ladron Arana

Japoniar **espedizio** batek ez ziela jaramonik egin hirugarren kanpamentuan hilzorian zeuden kolonbiar batzuei. Unai Elorriaga

Bigarren **espedizioan** iparralderago jo zuten, iparraldeko kostaldea esploratzeko asmoz. J.M. Olaizola "Txiliku"

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola dago atzo enfermerian utzitako **espedizio**-kidea? Unai Elorriaga

1950eko abenduan, Txinako **espedizio**-indar komunista erasotzaile bat *en route* omen zegoen Lhasarantz. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Latindar aparailuko Indiar ozeanoko "karabela", haren aitzindaria Egiptoko itsas **espedizio** baten erregistro bisualetan agertzen delarik marraztua. Iñaki Mendiguren

Ikasteaz gain, mendi-**espedizioak** ere muntatuko dituzte Pirinioetan gaindi. Herria

Margot eta Anne, Auschwitzetik Bergen-Belsen-era (Alemania iparraldera) eraman zituzten, ebakuazio **espedizio** batean, urriaren bukaera aldera. Josu Zabaleta

Bake-**espedizioa** zirudien, baina armak zeramatzaten ezkutaturik mantu zurien azpian. Xabier Aranburu

Zigor-**espedizio** baten xedea zigortzea da, baina nola zigor liteke horrelako jendea? Iñaki Mendiguren

5 irud/hed

Haruzkaldeko behere hartan, laino guztien azpiko ezereztegietan, hauts zikin bat zainetan eta huts garbi bat bihotzean, jonkia dabil **espediziotik espediziora**, bere izpiritu eroria, ertz zailenetik abiatuz, hutsetik hutsagora altxako duen jenero santuaren bila. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espedizio bat (16); **espedizio bat antolatu** (4); **espedizio batean** (6); **espedizio batek** (3); **espedizio baten** (6); **espedizio bati** (3); **espedizio hori** (4); **espedizio militar** (3); **espedizioan parte** (5); **espedizioan parte hartu** (3); **eta espedizio** (3); **zen espedizio** (3)

---

espedizioburu *(orobat **espedizio-buru**) iz* espedizio baten burua.

-Espedizioburu, hire aginduetara! -esku luzatua loki aldera, militar antza. Aingeru Epaltza

Drakeren aldekoek diotenez, ingelesa **espedizioburu** irten eta **espedizioburu** itzuli zen, Elkano buztan abiatu eta buru etorri zelarik. Edorta Jimenez

-Hemen **espedizio-burua** kanpamentu nagusikoei, erantzun -esan zuen Mariak eskua ahora eramanda, irrati-aparailua simulaturik. Unai Elorriaga

Ondotik, Santo Domingo ugarterako eta Txilerako espedizioetan partaide izan zen eta 1553 an, agustindarren konpainian sartu zen, Mexikon, eta 1564 ean Filipinetara joan **espedizioburu** gisa. Herria

Espedizio hartan, Juan Sebastian Elkano **espedizioburu** getariarra hil zen. Herria

---

espediziokide *iz* espedizio bateko kidea.

Ignacio Barrio, Oscar Fernandez, Javier Txikon, Aitor Iparragirre eta Patxi Viguria ere **espediziokide** dituzte, eta horiek ere gaur egin dezakete gailurrera iristeko saialdia. Berria - Kirola

Ia hamabi orduko hegaldia egin ondoren ailegatu ziren San Frantziskora **espediziokideak**. Berria - Kultura

Haren gorpua berreskuratu ahal izan zuten **espediziokideek**, eta Euskal Herrira ekartzeko tramiteak hasiak dituzte. Berria - Kirola

Mikel Zabalza nafarra eta Juan Vallejo arabarra, bi zaurituekin K-2ko gailurrera igotzea lortu zutenak, datorren astean itzuliko dira, gainerako **espediziokideekin** batera. Berria - Kirola

Espediziokide denek bulartsu jardun zuten. Edorta Jimenez

Tabernan, kasualitatez, Karmelo topatu dugu eta bera izan da **espediziokideok** zoriondu gaituen lehena. Patxi Zubizarreta

---

espedizione ik **espedizio**.

---

espediziotxo *iz* espedizio xumea.

Hiru egunez ostatu eta bulego izango dudan hoteleko gela txikian bide-fardelak utzi eta gero, ez mapa eta ez norabide, lehen **espediziotxoa** egitera irten naiz. Anjel Lertxundi

---

espejismo *iz* desberdin beroturiko bi aire geruzetan gertatzen den islatzearen ondoriozko lilura optikoa; ilusioa, lilura. ik **ispilatze**.

Komunera jo eta aurpegia freskatu zuen, estudioko gela bakar eta nagusira heltzean **espejismoaren** azken herena ere desagertua izango zelakoan. Harkaitz Cano

Urrundik azal iluna duen edonork pizten du esperantzaren argia, baina hurbiltzean **espejismoa** hautsi egiten da. Berria - Harian

Espejismo hark erakarrita, musu eman zion. Jasone Osoro

Egongelako hamabost liburu haiek **espejismoak** izango ziren, edo dekoratu bat; izan ere, ondo zekien Matiasek noiz ari diren pertsonak egia esaten eta noiz ari diren gezurra esaten. Unai Elorriaga

Beharbada okerreko bidea hartu du berriro ere, zoriontasun **espejismo** baten atzetik abiatuta. Patxi Iturritegi

Ume batzuek harriak bota dizkidate goizean, basamortuz inguratutako herrixka triste baten albotik pasatzean, baina hori **espejismo** desatsegina besterik ez da izan, aurrera jo ahala guztiz bestelako jarrerekin egin baitut topo. Jon Arretxe

Nahiago ametsa gauzatu ezinaren tristezia, ankerki irabazitako **espejismoa** baino. Hasier Etxeberria

Europako hiririk politena dela diote batzuek, **espejismo** antzeko zerbait eskaintzen duela hiriak, dorreetako labirintoak, zubi dekoratuak, kupulak nonahi. Berria - Kultura

Inguratzean, **Espejismoaren** E-ak engainatu egin ninduela baieztatu nuen, eta F hura ez zela Faroarena, Fantasmarena baizik. Bernardo Atxaga

---

espektadore *iz* gertakari bat ikusten duen pertsona.

Telebistaren arrakasta **espektadorearen** geldotasunari zor zaio. Patziku Perurena

---

espektakular *izond* iksukizun edo kide zerbaitez mintzatuz, zirrara edo mirespena eragiten diona.

AEBetan best-seller tankerako saiakeretan ohikoa den estilo mediatiko, **espektakular** eta arinaz, Rifkinek produktibitatea areagotzen duten teknologiek gero eta giza lan gutxiago behar dutela defendatzen du. Iñaki Heras

Ekaitzen misterioa, halaxe da, gure mundu honek ematen digun ikuskizun harrigarrien eta **espektakularrenetarikoa** da. Pello Zabala

Badauka abesbatza honek berea den soinu ardente bat, ahotsen proiekzio berezi bat, naturala eta beroa, dizdiratsua eta **espektakularra** baino gehiago. Berria - Kultura

Ez da **espektakularra** baina herri polita da. Mikel Hernandez Abaitua

Aipatu ohi dituen gaiak (bigarren mundu gudatea, judutasuna) hain izan dira erabiliak (galtza erabiliegiak bezala gastatzeraino, esango nuke) non ez baita saiatzen ere gertakizunei zuku **espektakularra** ateratzen. Berria - Kultura

---

espektakularizazio *iz* espektakulu bihurtzea.

Hurbileko errealitateari erreparatuta, beste hainbat aldaketa jazo ziren: Estatuaren garaipena, Bilbo hiriaren eraldaketa eta kulturaren **espektakularizazioa**, haien artean. Berria - Kultura

---

espektakulero *izond adkor* espektaluluen zale gaitsezgarria.

Nik ordea, garbi aitortuko dizut, alor guzietako apoeuskaldun funtzionario eta bitartekari parasito horien eraginez ugaltzen ari den jitokomertzio "erakusketero, **espektakulero"** honi gero eta nazka handiagoa diodala; beste nonbaitean sumatu izan baitut betidanik zinezko euskal hazia eta grazia. Patziku Perurena

---

espektakulu *iz* ikuskizuna. ik **ikuskari**.

Muino gainean haizea errime sentituko duzue, baina aldats gorako nekea merezi izango du goitik berera ikusiko duzuen **espektakuluak** : animaliatxo zuribeltzez beterik dago itsasorainoko arrokegi guztia. Joseba Sarrionandia

Bi aste baino gutxiago falta da AEBetako hauteskunde kanpainaren **espektakulua** bukatzeko. Berria - Mundua

Heriotza **espektakulu** bihurtu duen gizarte baten hutsaltasuna erakusten du Andy Warholek. Berria - Kultura

Oraintxe, ordu batean, **espektakulu** bat daukagu: bi drag queen "Ella baila sola"ren playback-a egiten. Pako Aristi

Amaitu dela uste duzuenean, **espektakulua** errepikatu egingo da, izotz bloke handitik beste hiruren bat jausi direnean. Joseba Sarrionandia

Ikuspegi garai, epel eta leunetik so egingo diozu haize zuriaren **espektakuluari**, haizeak elurra bere ohetik astindu, zirimolatan jaso eta, alde batetik bestera daramala, zurrunbilotan eragiten duen artean. Joseba Sarrionandia

Biblia protestante bat ekarri zuen eta osaba Xabierrek erre egin zion, bere begien aurrean erre, inkisidore batek bezala, **espektakulua** ikustarazi zion gainera. Mikel Hernandez Abaitua

Hurrengo egunean, albisteak lehen maila hartzen du informazioaren **espektakuluan**. Bernardo Atxaga

Geroago eta nabarmenagoa duk, ene ustez, **espektakulutik** alde egitea higiene kultural eta pertsonala dela. Patziku Perurena

Gu ez gara **espektakulu** zaleak, ez behintzat artearen izenean **espektakulua** egiten denean. Berria - Kultura

Espektakulu tamalgarria izan da. Berria - Euskal Herria

Gustuko **espektakulua** bihurtu zitzaidan landareen hostoen horitze-prozesua jarraitzea. Iban Zaldua

Bizi, hori bai, asko kritikatu arren bere baitan gauzkan eta partaide gaituen gizarte eta **espektakulu** -merkatu honetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertzelako oroitzapenak nituen futbol **espektakuluen** bilakaeraz, gol itzelak eta partida historikoak. Berria - Kirola

Espektakuluaren mundua gustatzen zaien batzuek esango dute Garzonen jokabidea oso gustuko dutela, edo orain Grande-Marlaskak duen jarrera. Berria - Euskal Herria

---

espektante *adlag* adi-adi zain.

Eskainiko duen Romeo eta Julieta entzuteko zain gaude, **espektante**. Berria - Kultura

---

espektatiba *iz* espero daitekeenaren zain egotea.

Izeba Matildek gaitz sendaezina zuen, eta hainbeste urteren agoniaren **espektatiba** baino ez zitzaion geratzen. Jon Alonso

Raimundo Silvak [...] arreta obsesiboaz behatzen zuen, goizetik gauera, bere ileen erroa, bere biloen egia azaltzeak, artifizioz biluzturik, eragingo zion kolpearen **espektatiba** morbidoki dastatuz. Jon Alonso

Hizketan jarraitu zuen eta editorearekin eta abokatuarekin ere hitz egin zuela jakinarazi zidan eta **espektatibak** ezin hobeak zirela. Joxean Agirre

Neskamearen **espektatibak** frustratu egin ziren, laneko kontuak. Jon Alonso

Arazoak sor daitezke familiek eta enpresek politika ekonomikoei buruz dituzten **espektatiben** arabera hartu dituzten erabakiekin. Berria - Ekonomia

Oso dezepzionantea da, jasotzen duena oso gutxi da sortutako **espektatibekin** alderatuta. Berria - Kultura

Erakargarri egiten zitzaizkion beti paper zaharrak, eta **espektatiba** handiak izaten zituen paper zaharren inguruan, baina gero inoiz ez zuen ganorazko ezer topatzen paper zaharretan. Unai Elorriaga

Dirudienez, ez nituen gobernuaren **espektatibak** bete, eta beraiek nire sinesgarritasuna eta izena zalantzan ipini zuten. Berria - Euskal Herria

PSOEk, sortutako **espektatibak** zapuztu nahi ez baditu, Garoñako planta itxi beharra du legealdion bertan. Berria - Euskal Herria

Ez da komeni **espektatiba** faltsurik sortzea. Berria - Gaiak

Kokatu duk markoa, halako ikuspegi orokor bat: **espektatiba** politikoak, Donostia, egun berriaz erdituko diren gauak borborrean... Hortik aurrera hasten duk zailtasuna.

Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espektatiba handiak (3); **sortutako espektatibak** (3)

---

espektazio *iz* interesatzen den zerbaien zain egotea.

Gehiegizkotasun horrek egiten du posible desiraren konbinazio, **espektazio**, betekizun amaigabeak. Joseba Zulaika

"Berehala noakizu" edo esango lukeen keinu bat egin dit begiradaz, ikusi nauela, arratsaldeonak eman eta **espektazioz** aiduru ninduela adieraztearekin batera. Pako Aristi

---

espektoratu, espektora(tu), espektoratzen du *ad* eztularen bidez ahotik bota.

Azaroan sartu ginen eta azaroko egun batean eztulka larrian hasi zen, eta, ohiko karkaisekin batean, odola eta odolbilduak ere **espektoratu** zituen. Joan Mari Irigoien

---

espektral *izond* espektroarena, espektroari dagokiona; irreala dena edo irreala ematen duena.

Uhartera heldu eta handik ikusita, San Francisco ageri-itzalika zebilen gandu **espektral** batez bildua. Javi Cillero

Egunsentia zen, eta airearen argitasunak, teilatuetaraino eta harresiaren almenetaraino baino iristen ez zenak, itxura **espektrala** ematen zion hiriari. Bernardo Atxaga

Azken hilabeteetan dena bihurtu zitzaion ilun, makabro, **espektral**, eta mamuak agertzen zitzaizkion aspaldiko une txarrak salatzera. Javi Cillero

Gero eta hurbilago zuten, beltza eta **espektrala**, munduaren azken mugan ilunpeak osatutako harresi baten antzera altxatuz. Agustin Otsoa

Eta orduan, Pippinen begi harrituen aurrean, harresien kolorea gris **espektraletik** zurira aldatu zen, egunsentiak apenas gorritutako zurira. Agustin Otsoa

Fikzio baten botere **espektralaren** aurrean gaude. Joseba Zulaika

---

espektro *(orobat **espektru** g.er. eta **espektrum** g.er.)* **1** *iz* mamua, iratxoa.

Haren azal transluzidoari erreparatzean, zalantza egin genuen: agian **espektroa** zen hura, arima herratua. Iban Zaldua

Berarekin makina-lan hori egingo zutenak bera bezalako gizakiak izateak halako itxura berri, ezohiko eta gaiztoa ematen zien: **espektroak** ziren, alegiazko izakiak, nahita soilik agertzen ziren mamuak, panpina mekaniko malgukidunak. Jose Morales

Espektro bihurtuta, besteak ikusteko ahalmena izango luke, baina haiek ez lukete bera ikusiko. Iban Zaldua

Nondik atera zituen Shakespearek *Macbeth* eta beste obra batzuetako **espektroak**? Bernardo Atxaga

Korrikaldian kalean gora jarraitu zuten lerde jario zihoan **espektroaren** atzetik. Jon Maia

Ezintasun hori ere hautsi egingo da, eta leku batean *aparecido* direlakoak sortuko dira, edo *Santa Compaña*-koak, eta bestean zonbiak edo gazteluetako **espektroak**. Bernardo Atxaga

Deabruak lasterka zebiltzan hara-hona, oraindik bizirik zirauten gerlari banaka batzuen atzetik, dena suntsitzeko grina biziak eraginda, eroritako gorputzei su emanez eta Azpimundura igorriz **espektro** bihurturik. Joanes Urkixo

Kostaldeko guztiek hala uste dute, abandonatzen den hildako marinelaren **espektroa** azalduko dela goiz edo berant hilobi eske. Koldo Izagirre

Arraroa eta ederra iruditzen zitzaidan Mordorren asmoak iluntasunaren eta beldurraren **espektro** haiek suntsitu izanari. Agustin Otsoa

Han, bizitza eta heriotzaren arteko puntu batean hegaka, ehunka gerlari irlandarren **espektroak** kexu eta aieneka ari ziren laguntza eske. Joanes Urkixo

Izaki hegadunak alarau batez erantzun zuen, baina Eraztunaren **Espektroak** isilik iraun zuen, zalantzan balego bezala. Agustin Otsoa

Hura ez baitzen Gizakien **Espektroen** beldur. Agustin Otsoa

Zeru oraindik grisaren azpian, zamalka jarraitu zuten, eguzkia oraindik ez baitzen iritsi aurrean zuten **Espektroen** Mendiko gailur beltzeraino. Agustin Otsoa

Haren dirdirak **espektro** itxura eman zien lagunei. Fernando Morillo

2 (izenondoekin)

Begi tristeko **espektro** urdinxka da, burdinaz eta larruz jantzia, baina lantza, ezpata eta ezkuturik gabea. Iban Zaldua

Baita heriotza beltzaren **espektro** lazgarriak ere, sarraskia eginez baitabil Europan zehar alde batetik bestera. Joan Mari Lekuona

Amesgilea bazter batean zegoen, eta haren **espektro** gorpuzgabea soilik mugitzen zen, hitzik gabe hitz egiten zuen, sufrimendurik gabe sufritzen zuen. Jose Morales

Han segitzen zuen **espektro** erronkariak, aurrera ezinik nahi adina denboran edukiko ninduelakoan. Joxean Sagaztizabal

Hemen ere askotariko iritziak dira eta horiek hainbat interpretazioren **espektro** hermeneutikoa sortzen dute. Xabier Kintana

Ustekabean hiru zaldizko agertu ziren ilargiaren argipeko **espektro** hegadunen antzera, eta mendebalderantz desagertu ziren. Agustin Otsoa

3 irrada multzo bat barreiatzearen ondorioa; eremu zabal eta etengabe bateko maiztasun banaketa.

Newtonek, prismaren esperimentu ospetsuan, 1666an, erakutsi zuen elkarturiko kolorez osatzen dela argi zuria: **espektroko** koloreetan banatu eta berriro osa zitekeela, hain zuzen. Xabier Olarra

Zerbait berezia sorrarazten du, **espektroko** zazpi koloreei zortzigarren bat, begiarentzat ezezaguna, gainera eman baliete bezala. Felipe Juaristi

Espektroa txuritik beltzera doa, baina, hori esan ondoren, nork bere gogora sailka ditzake koloreak, eta hala, inuitek hiru kolore bakarrik bereizten omen dituzte. Bernardo Atxaga

Ilunabarrak aurrera egiten zuen, eta zeruko zuri eta zurixkak, gorri eta gorrixkak, hori eta horixkak lilaren **espektrora** labaindu ziren. Joan Mari Irigoien

Konpara ditzagun gamma izpiak **espektroaren** beste erradiazio motekin. Berria - Gaiak

Asetasuna, "soiltasuna", alegia (arrosa kolorea gorri "ase gabea" da, gorriari zuria gehituta lortua); eguzkiaren **espektroko** koloreek gehieneko asetasuna dute. Josu Zabaleta

Gauza jakina da argi zuria (eguzkitik datorrena batez ere, eguzkia baita, alde handiarekin, gehien egokitzen zaigun argi-iturria) **espektro** ikusgarrian diren uhin-luzera guztiak dituen argi "nahaste" bat dela. Josu Zabaleta

Gehien makurtzen ziren errainuak (errefrakzio handienekoak) more ikusten ziren; errefrakzio txikienekoak, gorri; **espektroko** gainerakoak, berriz, bien artean. Xabier Olarra

Kristalinoa ez da guztiz gardena, horixka antzekoa baizik, eta oztopatu egiten du **espektroaren** eskualde more eta ultramoreko argia, hau da, aberrazio kromatikoa handiagoa litzatekeen eskualdekoa. Irene Aldasoro

Lehen legea hau da, kultur irrada integral bat, argi-irrada integral bat bezala, bere osagaien **espektroan** difraktatzen dela, gauzaki errefraktario batera sartzean. Iñaki Mendiguren

Jarrera politikoa: %47k ezkerrean kokatzen dute beren burua, %52 euskal herritarrak sentitzen dira, %40 ez dira euskal **espektroko** alderdi politikoetatik gertu sentitzen eta %36 sentitzen da europarra. Berria - Euskal Herria

Baita San Migel Goiaingerua ere, edo Jesus Haurra, Santa Teresa, eta baita, **espektroaren** haruzko puntan, deabrua edo sorginak ere beste batzuek. Iñaki Segurola

Sintomen **espektro** zabala ikusita, autista gehienek gaixotasuna eragiten duten faktore genetikoetako batzuk antzekoak dituztela uste da. Berria - Gaiak

4 (izenlagunekin)

Espektro zabal eta luzea, beraz, Lopez de Gereñuk jorratu zuena. Berria - Kultura

Gizarte baten bizi baldintzetan eragina duten aspektu eta baldintzen **espektro** osoa ukitzen du termino honek. Berria - Gaiak

Espektro ia osoa, demokristauetatik ezkerreko nazionalistetara, bildu eta kontrentrazio gobernua eratu Yves Leterme bozen irabazlearen inguruan. Berria - Mundua

Espektro elektromagnetikoetan izan daitezkeen aldaketak aztertu nahi dituzte. Berria - Euskal Herria

Estatu Batuetan kontsentsu sendoa dago **espektro** politiko osoan, lasterketan jarraitu behar dugula esateko, hau da, Iraken jarraitu behar dugula, Irak egonkortasunez eta askatasunez berez jarraitzea duen arte. Berria - Mundua

Beren esanetan EAD «alderdi humanista da, kontserbadorismo eta sozialismoaren artean» kokatzen dena Europako **espektro** parlamentarioan.» Hirugarren bidea» delakoa da beren hautua. Berria - Euskal Herria

Hemen ere askotariko iritziak dira eta horiek hainbat interpretazioren **espektro** hermeneutikoa sortzen dute. Xabier Kintana

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehenbiziko berri-emate horietan beretan ere argi dago fenomeno- eta sintoma- **espektro** zabala dagoela, eta beste sail bat ere badela Kannerrek eta Aspergerrek emandakoei gehitzeko. Xabier Olarra

Espainiako Gobernuak asmoa omen du irrati **espektroaren** inguruko plan teknikoa berritzeko, eta Nafarroako Gobernuari eskatu dio irrati frekuentzien alorrean dituen beharrak azal diezazkion. Berria - Harian

Euskal Herriko irrati **espektroa** hiru administrazioren esku dago; bere arau zehatzak ditu bakoitzak. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espektro zabala (5); **espektroa kontrolatzeko** (3); **herriko irrati espektroa** (3); **irrati espektroa** (6); **irrati espektroa kontrolatzeko** (3); **irrati espektroaren** (5)

---

espektrografo *iz* uhinen mugimenduen maiztasun espektroa analizateko gai den tresna.

Orain gutxi arte **espektrografo** deituriko tresnaz ateratzen ziren, hots-UHINAK bultzada elektriko bihurtu lehendabizi eta, azkenik, grafiko eginda. Lourdes Oñederra

---

espektrograma *iz* soinuaren emisioaren maiztasun espektroaren errepresentazioa.

Sonograma ere deitzen zaio, baina esan daiteke **espektrograma** dela gehien erabiltzen den izena eta esanahiaren aldetik gardenena dena. Lourdes Oñederra

Hotsaren osagaiak maiztasun eskalan (behetik gora) eta denboran zehar (ezker eskuin) erakusten dituen irudia da **espektrograma**. Lourdes Oñederra

Espektrogrametan, kontsonante sudurkariak bokalen oso antzeko agertzen dira, baina intentsitate ahulagoari dagokion kolorez (edo gris argiagoz, **espektrograma** zuri-beltzean egiten bada). Lourdes Oñederra

Asko aberastu da azken urteotan **espektrogrametan** xehetasunak grafikoki adierazteko gaitasuna. Lourdes Oñederra

---

espektrometria *iz* espektrometroaren bidezko ikerketa.

Erresoluzio altuko **espektrometriaren** bidez proteina kartzinogenoak aurkitzeko gai dira adituak. Berria - Gaiak

---

espektrometro *iz* uhin mugimendu baten espektroa neurtzeko tresna.

Errusiar hondakinen orbita berean bazebilen beste objektu bat, tamainaz ez nolanahikoa, egia esan, baina dentsitate txikikoa hala ere -2,1 g/cm3-koa bakarrik-, **espektrometroaren** arabera nukleo metalikorik gabeko kondrita karbonatuzko arroka puska bat izan zitekeena. Patxi Iturritegi

---

espektroskopia *iz* espektrometroaren bidezko ikerketa.

Quark-ak Gell-Mann zeritzan batek asmatu zituela 1964an, *quark* izen hori berori barne, jakina (nola asmatu bestela?), eta, diotenez, **espektroskopia** hadronikoa izeneko gauza bat esplikatzeko beste erremediorik ez zuelako, etsi-etsian. Iñaki Segurola

---

espektru ik **espektro**.

---

espektrum ik **espektro**.

---

espekular *izond* ispiluarena, ispiluari dagokiona.

Marrazkiek interpretaziorako askatasunaren eremu zabala eta garai konkretu bakoitzak Vitruviorengan bilatu nahi duenaren irudi **espekularra** (gogora dezagun berriro ere lehen aipatu dugun Escorialeko presentziaren kasua, Castañeda-k egindako Conpedio-aren atarikoan) osatuko zuten. Santiago Iruretagoiena

Historiak anitz izenez ezagutzen ditu (**espekularrak**, abismalak, kainitak), baina guztietatik harrerarik onena izan duena histrioiena da, Aurelianok eman eta haiek ausardiaz berentzat hartu zutena. Juan Garzia

---

espekulatibo 1 *izond* espekulazioarena, espekulazioari dagokiona.

Pentsatzaile handi baten, ausardiaz beteriko mistiko **espekulatibo** baten eta, hitz batean, gizon handi baten kemen eta soberanotasunak esanarazitako hitz mamitsuak dira. Joan Mari Lekuona

Kritika honek soilik zedarrizta dezake gure asmo **espekulatibo** oro esperientzia ahalgarriaren alorrera. Ibon Uribarri

Hemen agertzen da gure historian lehendabizikoz kazetaritza **espekulatiboa**, sekretupean dagoen gertaera bati buruzko hipotesiak eta errudunak seinalatzen ausartzen dena. Pako Aristi

Arrazoimena erabilera honetan sentimenaren mugez goiti hedatzen da nahitaez, horretarako arrazoimen **espekulatiboaren** laguntzaren beharrik izan gabe. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren printzipio **espekulatiboetatik** abiatzen den Teologia kritikari menperatzen zaio halabeharrez. Ibon Uribarri

Hau gertatzen da eskuarki interes berezirik ez duten eta modu errazean ziurtasun apodiktikoaren gai ez diren judizio **espekulatiboetan**. Ibon Uribarri

Enpirismoak abantailak eskaintzen dizkio arrazoimenaren interes **espekulatiboari**. Ibon Uribarri

Zerizan gorenak arrazoimenaren erabilera **espekulatibo** soilarentzat ideal soil baina akatsik gabekoa dirau. Ibon Uribarri

Froga **espekulatiboak** inoiz ezin izan zuen eduki eraginik giza arrazoimen arruntean. Ibon Uribarri

Jainkoaren existentzia frogatzeaz harrotzen den Teologia **espekulatiboa**. Ibon Uribarri

Hortaz, gure apriorizko ezagutza **espekulatiboaren** azken asmo osoa halako oinarri-esakune sintetikoetan, h[au] d[da], hedapenezko oinarri-esakuneetan funtsatzen da. Ibon Uribarri

Erabat bakartutako arrazoimen-ezagutza **espekulatiboa** den eta adigai hutsei esker. Ibon Uribarri

Hala sortu zen bizitza **espekulatibora** daraman orori atxikitako perfekzio-ideia. Iñaki Iñurrieta

Benetako jakintza **espekulatiboak** esperientziaren objektuak baino ez baititu ukitzen. Ibon Uribarri

Zientziaren aplikazioak etikoak diren epaitzeko, berriz, beharrezkoa da filosofia, zuzenbidea, soziologia, antropologia, psikologia eta horrelako zientzia **espekulatiboen** metodologiaz eta jakintza altxorrez baliatzea. Berria - Gaiak

Hala eta guztiz ere, filosofo **espekulatiboek** duten uzi bidezkoago batez arduratuko gara. Ibon Uribarri

Asmoa **espekulatiboa** baino ez denean, beraz, hemen ezin dugu juzgatu; ustearen oinarri subjektiboek, sinestea eragin dezaketenek bezala, galdekizun **espekulatiboetan** ez dute onarpenik merezi. Ibon Uribarri

Ezagutza teoretikoa **espekulatiboa** da objektu bati edo objektu baten halako adigaiari badoakio. Ibon Uribarri

Produkzio sintomatiko horietan irudiek beren eginkizuna izanagatik, ordea, horrek ez du esan nahi irudi horiek inkontzientean "daudenik", eta arazo hauxe da, hain zuzen, Freuden doktrina guztian geratzen den gairik **espekulatiboenetako** bat. Josu Zabaleta

2 espekulazio ekonomikoari dagokiona.

Estatuek, batak bestearen ondoren, munduko merkatuetan zirkulatzen zuten kapital **espekulatiboen** masa izugarriaren kontra ezin zutelarik borrokarik egin, amore eman eta errealitate berri horretara egokitu behar izan dute. Koro Navarro

Espetxe berria egiteko asmoen atzetik, «interes **espekulatiboak**» daudela uste duelako. Berria - Harian

Aktibo likidoenak gauzatzeko lasterketa hasten da orduan, eta lasterketa horrek berehala ekartzen du merkatu **espekulatiboen** erorikoa, kapitalen ihesa eta kanpoko kreditu-lineak izoztea. Koro Navarro

Nazioarteko finantza trukearen fluxu **espekulatiboak** izugarriak direlako, eta horien ondorioz, nazioarteko burtsek beren artean duten harremana estua delako. Iñaki Heras

Gaur egungo ekonomian finantza eragiketa **espekulatiboek** sekulako eragina dute truke-tasen aldakortasun handian. Iñaki Heras

Truke-tasen erreakzio gehiegizkoaren eta burbuila **espekulatiboen** fenomenoak, hortaz, finantzen alorraren eta ekonomia errealaren artean dagoen distantzia gero eta handiagoen bidez ager daitezke. Koro Navarro

Jokamolde **espekulatibo** tipikoa -erasotako dirua maileguz hartzea, debaluazioaren aurretik saltzeko, eta diru debaluatuan itzultzeko geroago- kostu handiagokoa izango litzateke horrela, hots, arriskutsua. Koro Navarro

Gaur egungo ekonomian finantza eragiketa **espekulatiboek** sekulako eragina dute truke-tasen aldakortasun handian. Iñaki Heras

Horrez gainera, higiezinen merkatu hankazgoratua zegoen, haren gainean oso jarrera **espekulatiboak** baitzituzten bankuek hartuak. Koro Navarro

Diru ahulenen erorikoak [...], eskualdeko beste diruen apreziazio erreala esan nahi zuen (Hego Koreako won-arena adibidez), eta era horretan eraso **espekulatiboen** gero eta mendekoago geratzen ziren. Koro Navarro

Truke-tasa malguko erregimenean, espekulatzaileek (ustez, eragile arrazionalak direnak) interes-tasak apalak direnean erostean eta garestiak direnean saltzean datza **espekulazioaren** egonkortasun-eragina. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrazoimen espekulatibo (12); **arrazoimen espekulatibo soilaren** (5); **arrazoimen espekulatiboak** (10); **arrazoimen espekulatiboak bere** (4); **arrazoimen espekulatiboaren** (10); **arrazoimen espekulatiboari** (4); **arrazoimenaren erabilera espekulatibo** (3); **arrazoimenaren erabilera espekulatiboaren** (3); **bere erabilera espekulatiboan** (4); **burbuila espekulatiboak** (3); **erabilera espekulatibo** (5); **erabilera espekulatiboan** (9); **erabilera espekulatiboaren** (5); **espekulatibo eta** (3); **espekulatibo soila** (3); **espekulatibo soilaren** (7); **espekulatiboa baino ez** (5); **espekulatiboa besterik ez** (3); **ezagutza espekulatibo** (3); **interes espekulatiboak** (5)

---

espekulatu, espekula(tu), espekulatzen **1** du *ad* zerbait maila teoriko hutsean pentsatu edo gogoan erabili.

Horren arrazoia, beharbada, zera da: geneen fisiologiari eta kimikari begiratu beharrean, ondoretasunaren teoria posibleez **espekulatu** gabe, datuei egin ziela hark jaramon. Juan Garzia

Hortik aurrera, azido pirubikoa destilatzen eta agurearen azukreaz **espekulatzen** eman nuen eguna. Juan Garzia

Jainkoaz **espekulatzeaz** aspertuta bailegoen, gizakia bilakatzen da ardatz. Askoren artean

Downing Streeteko Defentsa ministerioko bozeramaile batek «ikerketaren ondorioen zain» daudela eta «bien bitartean» ez dutela **«espekulatuko»** adierazi zuen atzo. Berria - Mundua

Espekulatzen hasi da ea nola joan herrenka sutara, ur pixka bat irakin eta eskua bete irin bota. Anton Garikano

I. jauna, apika, istripuaren ondorioz, autoko ke-hoditik nolabait sartutako monoxidoaren eraginpean zegokeen -**espekulatzen** zuen Crickek-, eta ez zegoen baztertzerik istripua bera ere pozoiketa horrek eragina izatea. Xabier Olarra

Hala ere, gertatu ondorengo jakinduria errazaren zain egon gabe, behatzaileak agian **espekula** dezake onuragarriro etorkizun dauden gauzen formaz. Iñaki Mendiguren

Ez da falta kapitaina itsasoa utzi eta lurrean bizi dela **espekulatzen** duenik. Harkaitz Cano

Ziurgabetasun horrek parada eman die Gipuzkoako zenbait komunikabideri bere egoerarekin **espekulatzeko**, ilusioak sortzeko. Berria - Kirola

2 salerosketetan, merkatuaren gorabeherez baliatu etekin handiak lortzeko.

Merkatariak arroz guztia berenganatu eta **espekulatzen** hasi ziren. Iñaki Mendiguren

Zendako beharko lituzke hainbeste lur jakinez ez dela laboraria, ez bada **espekulatzeko**? Berria - Euskal Herria

Espekulazioaz ere hitz egin du: «SEPIk galarazi behar du inork lantegiko orubeekin **espekulatzea**». Berria - Ekonomia

Euskal Herri-ko administrazioek ez dutela euren zeregina betetzen salatu dute, eta enpresa eraikitzaileei, banketxeei, etxe agentziei eta ugazaba partikularrei etxeen «prezioekin **espekulatzeko** aukera» ematen dietela. Berria - Euskal Herria

Erostekotan, ez dute Naval erosiko orubeekin **espekulatzeko** eta diru azkarra irabazteko. Berria - Harian

Behar-beharrezkotzat jo dute «baliabide publikoekin **espekulatzeko** aukerak zapuzteko» neurri argiak hartzea. Berria - Euskal Herria

Urrialdirik bada (benetakoa nahiz aurrez ikusia), prezioen gorakadak ez du eskaria murriztuko, alderantziz, erreserbak metaraziko ditu, urritasunari aurrea hartzeko nahiz **espekulatzeko**. Koro Navarro

Kreditua erabiliz **espekulatzen** duten funtsak dira gure kasino-ekonomia garaikide honetako mamuak, *Hedge Funds* izenekoak. Iñaki Heras

Mamuek hankaz gora utz dezakete edozein herrialde, pare bat orduen gorabeheran, esaterako dibisa baten kontra **espekulatuz**. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espekulatu guran (3); **orubeekin espekulatu** (3); **orubeekin espekulatzeko** (3)

---

espekulatzaile **1** *iz* salerosketetan etekin handiak lortzeko merkatuaren gorabeherez baliatzen den pertsona edo erakundea.

Elikagaiak ezin du diru-bide huts izan, ezin da gizadiaren jarduera **espekulatzaileen** eskuetan utzi, inondik ere. Edorta Agirre

«Eraikitzaileen eta **espekulatzaileen** interesen alde» eginiko legea dela adierazi zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Korsikako lurra Frantziatik edo Italiatik joandako **espekulatzaileek** eurenganatzeko arriskuan zegoela salatzen zuten. Berria - Harian

Diru-masa izugarri murrizten da, beraz, debaluazioaren aurretik, eta berehala puzten da ostera debaluazioaren ondoren, **espekulatzaileek** ahal duten azkarrena ateratzen baititutze irabaziak, aldez aurretik erositako dibisak garesti salduz. Koro Navarro

Truke-tasa malguko erregimenean, **espekulatzaileek** (ustez, eragile arrazionalak direnak) interes-tasak apalak direnean erostean eta garestiak direnean saltzean datza espekulazioaren egonkortasun-eragina. Koro Navarro

Diru-agintariek erasotako parekotasuna aldezteko egindako ahaleginak, izan ere, espekulazioa elikatzen du, **espekulatzaileak** dibisak merke erosten jarrai bailezake, banku zentralaren erreserben ahitzeak debaluazioa noiz ekarriko zain. Koro Navarro

Mugimendu horien protagonista nagusiak ez dira edozein ordenagailutatik operatzen duten broker txikiak, edo inbertsore partikularrak (esaterako, day-trader izeneko epe motzerako **espekulatzaileak**: egunean bertan erosiz eta salduz aritzen direnak), inbertsio eta pentsio funtsak dira aktore printzipalak. Iñaki Heras

Etxebizitzaren inguruan espekulazioa da nagusi, eta, beharbada, udalak beraiek izaten dira **espekulatzailerik** garrantzitsuenak. Berria - Euskal Herria

• **2** *izond* salerosketetan etekin handiak lortzeko merkatuaren gorabeherez baliatzen dena.

Gizarte-interesari begira egin behar du lan, eta ez interes pribatu eta **espekulatzaileen** alde. Berria - Euskal Herria

Etxebizitzaren eskubidearen alde gizarte talde ugarik asteon bertan plazaratutako agiriak legeak erreklamatu ditu «lurra finantzabide gisara darabilten udalen jarrera **espekulatzaileak**» eragozteko asmoz. Berria - Euskal Herria

3 zerbait maila erabat teorikoan pentsatzen edo gogoan erabiltzen duena.

Alvaro Amann EAEko Garraio eta Herri Lan sailburuak «mezu **espekulatzaile** soiltzat» jo zituen informazio horiek guztiak, eta, nabarmendu zuenez. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espekulatzaileen esku (3); **eta espekulatzaileen** (4)

---

espekulazio

1 *iz* zerbait maila teoriko hutsean pentsatzea edo gogoan erabiltzea.

Izenik ez zabaldu, ezbehar larriari buruzko edozein **espekulazio** saihesteko. Berria - Euskal Herria

Zu are pentsaera maila goragora, **espekulaziokora**, igotzen direnetakoa baldin bazara, [...]. Xabier Kintana

Jainkoaren gorpuztasunean sinesten duena ez da horra heldu adimenaren **espekulazioaren** ondorioz, Eskrituren hitzez hitzeko zentzuari jarraikiz baizik. Xabier Kintana

Gizakiak ez duela irudikeria faltsuen **espekulazioetan** buru-belarri abiatu behar. Xabier Kintana

"Jakintsua" izatea, hots, **espekulazioan** saiatu baino lehen behar diren oinarrizko jakintzaz horniturik egotea. Xabier Kintana

Urruneko herrialdeetatik, ene irakaspenak jasotzeko, enegana etorri zinenetik, zureganako ene estima handitu besterik ez da egin zuk ikasteko erakusten zenuen grina nabarmenagatik eta zure poemetan **espekulaziorako** joera nabarmena aurkitu nuelako. Xabier Kintana

Froga fisiko-teologikoak, beraz, agian beste frogei [...] eragingarritasuna eman diezaieke, **espekulazioa** begiespenarekin elkarlotzen duen heinean. Ibon Uribarri

Espekulazioaren zoritxarrerako (agian, ordea, gizakiaren determinazio praktikoaren zorionerako) arrazoimena bere itxaropen gorenen erdian oinarriei eta aurkako oinarriei hain lotua gertatzen da, non bere ohoreagatik eta bere segurtasunagatik ezinezkoa zaionez atzera egitea eta gatazka hori ezpata-jolas soil gisa axolagabeki begiratzea. Ibon Uribarri

Arrazoimen arruntaren bitartez [...] zientziarik gabe gehiago lor daiteke **espekulazioaren** bitartez baino. Ibon Uribarri

2 (izenondoekin)

Epaileak Guardia Zibilaren txostenak oso-osorik bere egiten dituela nabarmendu zuen Iruinek, eta txosten horiek **«espekulazio** hutsa» direla, «susmoak eta errezeloak» besterik ez. Berria - Euskal Herria

Arazo nagusietako bat da herrietara ailegatzen diren asko eta asko «halabeharrez» joaten direla, normalean hiriko **espekulazio** inmobiliarioak uxatuta. Berria - Euskal Herria

Espekulazio soilaren bidea urratzen du haiei hurbiltzeko; baina haiek ihes egiten diote. Ibon Uribarri

Geure buruaren ezagutza **espekulazio** transzendente antzutik erabilera praktiko emankorrera gidatzeko. Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Araudiok **espekulazio** joerak zapuztu beharko lituzkete. Berria - Euskal Herria

Benetako lege aurrerakoia egiteko, eta EAJren eta PSE-EEren **espekulazio**-asmoei aurre egiteko. Berria - Euskal Herria

Ohar zaitez nolako baldintza jarri duten, horretarako testu sakratua aipatuz, hots, pertsona hori gizarte erregimenean eta **espekulazio**-zientzietan aditua izatea. Xabier Kintana

Badira, halaber, **espekulazio**-arazo asko, zientzia metafisiko honetarako oinarri baliagarririk eskaini ez arren, halere, izpiritua azkartzen eta saiarazten dutenak. Xabier Kintana

Jende arruntari **espekulazio**-metodoaren bidez irakasteko eta hasieratik gauzen egiazko izaeraz ideia bat sor dezaten egokitzeko debekuaren arrazoia, eta zergatik hau honela izatea guztiz beharrezkoa den, eta ez bestela, hurrengo kapituluan azalduko dizut. Xabier Kintana

Espekulazio mailara heldu uste duten ezjakinek pentsatzen duten bezala. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diren espekulazioak (3); **espekulazio eta** (5); **espekulazio handia** (3); **espekulazio horiek** (4); **espekulazio soilaren** (3); **espekulazio ugari** (3); **espekulazioa da** (4); **espekulazioa dela** (4); **espekulazioa erabiliz** (3); **espekulazioa erabiliz herritarren** (3); **espekulazioa eta** (6); **espekulazioa saihesteko** (3); **espekulazioa salatu** (8); **espekulazioa salatu du** (5); **espekulazioa salatzeko** (4); **espekulazioaren aurkako** (4); **espekulazioaren kontrako** (9); **espekulazioaren ondorio** (3); **espekulazioari ateak** (3); **espekulazioari aurre** (10); **espekulazioari aurre egiteko** (9); **espekulazioetan aritzea** (3); **eta espekulazio** (11); **eta espekulazioa** (6); **eta espekulazioari** (3); **eta espekulazioetan** (3); **eta lurzoruaren espekulazioa** (3); **inguruko espekulazioa** (4); **kontrako espekulazioa** (3); **lurraren espekulazioa** (3); **lurraren espekulazioaren** (3); **lurzoruaren espekulazioa** (3); **lurzoruaren espekulazioa erabiliz** (3); **prezioaren espekulazioa** (4)

---

espekulu

iz tresna medikoa, gorputzaren zenbait barrunberen sarrera zabaltzea eta haien barrena aztertzea ahalbidetzen duena.

Espekulua plastikozko gailu bat da, eta horren bidez bagina zabaldu eta barrutik nolakoa zaren ikus dezakezu. Luis Elberdin

Ondoren, **espekulua** jartzen dizute, bagina pixka bat zabaltzeko. Luis Elberdin

Espekulua itxita dagoela, sar ezazu poliki baginan, eta gutxika-gutxika zabalduz joan **espekulua**. Luis Elberdin

Espekulua sartu eta zabaldu ondoren, jar ezazu eskuko ispilu bat baginaren parean eta flexo bat bular aldetik ispilura begira. Luis Elberdin

---

espeleologia

iz lur azpiko barrunbeak esploratzen eta ikertzen dituen zientzia.

Ildo horretatik, adibidetzat hartu zituzten **espeleologia**, motonautika, paddlea edo billarra, eta kirolen bilduman jasota badaude ere, bakoitzak komeni zaion eraketa mota zein den deliberatu beharko duela argitu zuen. Berria - Kirola

Baso ura zalditegitik hurbil zegoen, eta gu sarritan joaten ginen **espeleologia** egitera, oso paraje egokia zen-eta, dena leizez betea. Anjel Lertxundi

Espeleologian edo ardi latxekin artzaintzan dihardutenentzat ere Lezek duen garrantzia azpimarratu dute. Berria - Euskal Herria

---

espeleologiko

iz espeleologiarena, espeleologiari dagokiona.

Errusiarra areago haserrarazteko helburuarekin, altxorraz ahazteko eta ibilaldi **espeleologikoaz** gozatzeko esan behar zionean, zerbait ikusi zuen horman Cortok. Iban Zaldua

---

espeleologo **1** *iz* espeleologian aritzen den pertsona.

Onik atera da Baltzolako kobetan zortzi ordu harrapatuta pasatu dituen **espeleologo** bat. Berria - Euskal Herria

Koba egokitzeko planak kezka sortu du ekologista, **espeleologo** eta mendizaleen artean. Berria - Euskal Herria

Ibiltaria, mendira bakardade bila etorritakoa, kementsu sentitzen da berriro, ibilerak hitzegiteko gogoa berritu izan balio bezala, eta **espeleologoekin** hizketan pasatzen du goizaren azken ordua. Bernardo Atxaga

Arrisku handiko kiroletan, mendizale eta **espeleologoen** artean, kasu, erreskate taldeak egoteak eta zerbitzu horiek debalde izateak, zenbait kirolzale arrisku handiak hartzera eraman omen ditzake. Iñaki Heras

Aratseko 9etan, Hazparneko Elgar zentroan, Pierre Vidal esploratzaile eta **espeleologoaren** mintzaldia: "Harpeetako artea lanjerean". Herria

Elkarte horretakoek Arantzadiko **espeleologoei** laguntza eskatu zieten. Gotzon Garate

2 (izenondo gisa)

Gizona atera ahal izateko sendagile **espeleologo** bat sartu zen kobazuloan, eta haren laguntzaz atera zen. Berria - Euskal Herria

---

esperantista *iz* esperantoaren aldeko pertsona.

Swapper-en artean talde batzuk, edo klub batzuk, orduan esaten genuen bezala, astun-astunak ziren, erlijiosoak, begetarianoak, **esperantistak**, imajinatu dezakezun guztia. Karlos Zabala

Sebastien Erhard Bretainiako **esperantista** izan da Estrasburgoko manifestazioaren koordinatzaile nagusia. Berria - Mundua

---

esperanto *iz* Zamenhof-ek 1887an sortu zuen hizkuntza nazioartekoa.

Ez nituen albora utzi hizkuntza unibertsalak; aztertu nituen **esperantoaren** nondik-norakoak -hizkuntza "ekitatibo, sinple eta ekonomikoa", Lunario sentimentalaren arabera- eta volapük-arenak. Juan Garzia

Zein eginkizun ikusten diozue **Esperantoari** Europako Batasunean? Berria - Mundua

Mezuak zirenez, esanahi bat eduki behar zuten ziur, baina sanskritoz edo beharbada **esperantoz**, zerbait adi zitekeelako, gutxi ordea. Unai Elorriaga

Hasieran **Esperantoak** tiratu zuen; gero, erlijioek; eta, azkenik, Alkimiak. Xabier Aranburu

Esperanto mintzaira beharko ote dute egun batez Europa egiten duten 25 herri horietakoek? Herria

Euskal **esperantoa** duzu amesten? Ana Urkiza

Deialdia Bretainiako **esperanto** elkartearena izan zen. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esperantoaren aldeko** (3); **esperantoaren inguruko** (3)

---

esperantozale *iz* esperantoaren zale den pertsona.

Badira Euskal Herrian, gutti bada gutti, **esperantozaleak**. Herria

---

esperantxa ik **esperantza**.

---

esperantza *(ETCn **13.205** agerraldi; orobat **esperantxa** g.er. eta **experantza** g.er; cf **itxaropen** ETCn **28.099** agerraldi) iz* **1** nahi edo desiratzen duguna gertatuko delako edo lortuko dugulako uste ona. ik **itxaropen**.

Esperantza badut liburu honekin irakurleak izanen duela nik ukan atsegin bera. Janbattitt Dirassar

Brontzezko ganbara batean, lepobihurritzailearen zapi isilaren aurrean, **esperantza** izan dut lagun; atseginen ibaian, izua. Juan Garzia

Ni beldur nintzen (**esperantza** nuen) aterperik gabeko toki batean harrapatuko ote gintuen euriak. Juan Garzia

Bordelek golik ez markatu izanak eta Baionak berdinketa lortu izanak giroa anitz berotu zuen eta ikusleen artean **esperantza** piztu. Berria - Kirola

Esperantza eragin du Ameriketako Estatu Batuetako hainbat ikertzailek *Nature* aldizkarian argitara eman duten albisteak: artemisina egiteko lehengaia ugari ematen duen legamia sortu dute. Berria - Gaiak

Hala ere guk beti **esperantza** atxikitzen dugu, fruitua ontzen ari da, behar bada ez da arras ontua, baina egun batez arrunt ontua izanen dela uste dugu. Herria

Ez lotsa, ez uka, ez etsi! Atxik **esperantza**! Aingeru Epaltza

Jakinez zerua irabaztea dela giristinoen **esperantza**, iduri luke, kasik apez edo serora egitera behartua dela giristinoa zeruan sartzea segurtatzeko. Xipri Arbelbide

Horren etorkizun eztiaren **esperantza** sakrifikatu behar ote zaie arrazoibide hutsalei? Jon Muñoz

Zinez xarmanta zara; eta mukuru bete duzu nire **esperantza**! Jon Muñoz

Ez hau **esperantza** honek bizkortzen? Txillardegi

Maratilari eragin nion, denda irekita aurkitzeko **esperantza** gutxirekin. Anjel Lertxundi

Berrogei eta koska zituen emakumea, ezkongabe edo alargun bakartia, hitzordu itsuetan bere bizitzako gizonezkoa aurkitzeko **esperantza** oraindik galdu ez zuen horietakoa. Harkaitz Cano

Halako batean, onik irteteko **esperantza** guztia galdua zutenean, portu-buruak baimena eman dio ontziari Amerikako bidea har dezan. Anjel Lertxundi

Ez nuen eskubiderik beren konfiantza nire eskuetan ipini zuten horien guztien **esperantza** zapuzteko. Jon Alonso

Joan zaitezte nahi duzuenaren atzetik, baita Zoro Gris horren atzetik ere, nahi baduzue, nahiz eta bere **esperantzak** huts egin duen. Agustin Otsoa

Eutsi niri, zeuk hitz eman bezala, eta biziko naiz; ez dakidala neure **esperantza** huts gerta. Elizen arteko biblia

Bizirik dirauenari, berriz, ikara ematen dio hildakoaren gauzak lekuz aldatzeak, bai bailirudike ezen, daudenean dauden bitartean, ez zaiola erabat agortzen hildakoa itzuliko den **esperantza**. Imanol Zurutuza

Gülbahar ere **esperantzatik** zalantzara pasatu zen. Fernando Rey

Horrela hori lortu duenak bakea, heriotzaren itxaropen hurbila eta Infernuaren **esperantza** izango ditu. Xabier Olarra

Antonia bertan topatuko zuelako **esperantza** zeukan baina han ere ez zegoen inor. Josu Landa

Estatuko Segurtasun Indarrek atentatuen erantzuleak lehenbailehen «Justiziaren esku» jarriko dituzten **esperantza** agertu zuen BNGk. Berria - Euskal Herria

Ihes egiteko **esperantzak** ere laster agortu zitzaizkion. Eneko Bidegain

Jainkoak lagunduko ahal digu gure **esperantzak** betetzen. Patxi Zubizarreta

Hil edo bizikoa zen guk bera pertsonatzat hartzea ere, eta ataka hartan ikustea nola bideratzen zuen bere historia -bere joera, premia eta **esperantzak**-. Xabier Olarra

Izan behar omen dugunak izan omen ginenera hurbilduko gaituen **esperantzak** bizi gaitu. Anjel Lertxundi

Esperantzak adimena loarazi zion, eta, halako batean, utzi egin zuen Bakuko jauregia, Samarcandara joateko. Felipe Juaristi

Lerroen atzetik bizi zirenei garaipenaren **esperantza** ematea ere bazuten helburu, etsipenaren ibai lohizko eta zurrunbilotsuan sartzeke lanean segi zezaten, aberriaren alde.

Felipe Juaristi

Adio, bihotza: besarkatzen zaitut liskar egin ordez, zuhurragoa izanen zarelako **esperantzan**. Jon Muñoz

Piarres Oihartzabal kapitainaren hitzak oroitu nituen, noiz eta poltsa diruz bete hura eman baitzidan, suma harekin gizon-gizon egin nintekeelako **esperantzan**. Joan Mari Irigoien

Parisko lente fabrikatzaile batekin tratuak izan zituen, lupa-edalontzia deitzen zuena asmatu eta aberastuko zen **esperantzan**. Harkaitz Cano

Murruetara igoak, Gilen eta biok haren etorrerari erne egoten ginen, huts eginen zigun **esperantzan**. Aingeru Epaltza

-Orain dela hogei urte hemen ez zegoan **esperantzarako** lekurik. Joan Mari Irigoien

Ba ote dugu **esperantzarako** motiborik? Joan Mari Irigoien

Aurrerapenaren eta **esperantzaren** kontinentea da Latinoamerika. Berria - Mundua

Urrundik azal iluna duen edonork pizten du **esperantzaren** argia, baina hurbiltzean espejismoa hautsi egiten da. Berria - Harian

Han dagoela, ustekabekoenean **esperantzaren** leihoa erdi ireki zaio. Edorta Jimenez

Euskal Herriko balizko bake prozesuan, **esperantzaren** kotizazioa beherantz doa. Berria - Ekonomia

Alegera kantatzen zuten, **esperantzaren** suak ziztatuak. Aingeru Epaltza

Esperantzaren telefonoetara deitzen dutenen %70, esaterako, emakumeak dira. Berria - Gaiak

Esperantzari atea erabat itxi nahi ez zion norbaiten hitzak baziren ere, orobat ziren ate hari zabalik eusteko gauza ez zen norbaiten hitzak. Imanol Zurutuza

Gaitz horrek jota dagoen gaixoak, etorri beharreko miragarri horren etorreran jarririk **esperantza**, uko egoten dio egoera apurka-apurka hobetzeko ahaleginak egiteari. Joxerra Garzia

Bada **esperantzarik** guretzat, gure atsekabearen aurka. Juan Garzia

Erabat bihurtu ninduzun zugana eta ez nuen ez emazterik desiratzen, ez mundu honetan inolako **esperantzarik** jartzen. Imanol Unzurrunzaga

Neskak dioenez, inoiz ez zion **esperantzarik** eman Grisostomori eta, beraz, ez dauka zerikusirik ikasle maiteminduaren heriotzan. Patxi Ezkiaga

Nik **esperantzarik** eman ez arren itxaropenari leiho guztiak zabalduko zenizkion. Xabier Mendiguren Elizegi

Udaletxera ninderaman helburua profesionala zelarik ere, banuen **esperantzarik** eman zidan hezurduraren jabeari buruz bide batez zerbait jakiteko. Ramon Saizarbitoria

Ez galtzeko **esperantzarik**. Felipe Juaristi

Nekanek ez du **esperantzarik** galduko, ongi baitaki, harez geroztik, semearekin hitzordua izanen duela egunero. Joan Mari Irigoien

Esperantza ez da sekula galdu behar! Karlos Linazasoro

Maitemindu egin baitzen, seko maitemindu, ez gizon bat emakume batez maitemintzen den moduan, baizik eta gizon bat emakume baten irudiaz maitemintzen den bezala: **esperantzarik** gabe. Felipe Juaristi

Esperantzarik gabeko bere agonian erne egonik, iduriz bakean hil zen. Marzel Etxehandi

Gazte ihardokitzailerik gabe, gerorik ez, **esperantzarik** ez! Herria

Baina Don Justinoren aurpegian izua da nagusi eta **esperantzarik** eza. Karlos Linazasoro

-Ez dut sinesten emazte baten betekizun bakarra lisatzea eta jateko prestatzea denik -marmaratu nuen enekiko, lankidea elkor geratuko zelako **esperantzan**. Itxaro Borda

Batak **esperantzaz** hitz eginarazten digu, mapagileen arrastoan; besteak, berriz, **esperantza** horrek ematen digun amorrua islatzen du. Bernardo Atxaga

Filosofiaren laguntzaz soilik ez baina fedez, **esperantzaz** eta maitasunez geureganatu dezakegu Jakinduria. Imanol Unzurrunzaga

Esperantzaz betea da ene bihotza. Herria

Eguzkiak mendebalean dir-dir, zeruan ostadarra, azpildar askoren bihotzak **esperantzaz** gainezka. Joan Mari Irigoien

Esperantzazko hitzak erran nizkien. Marzel Etxehandi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Damu mingarriak, gabetze eternalak, eta Valmonten isiltasuna gutxituko den eta zurea kezka bihurtuko den **esperantza** arin bat. Jon Muñoz

Aintzat hartzen baitzuten eta **esperantza** handia baitzuten harengan. Patxi Zubizarreta

Ez **esperantza** handi eta ez txikirik, komisario jauna. Harkaitz Cano

Baina oraino **esperantza** ttipi bat baduzue. Berria - Euskal Herria

Noski, ez nuen nire protestak ezertarako balioko zuen **esperantza** txikienik ere. Ramon Saizarbitoria

Semea du Elederrek bizitzen segitzeko **esperantza** bakarra. Anjel Lertxundi

Gogoeta eta zalantza horiek paper txuri batera aldatu nituen, idatzi ahala ezer hoberik bururatuko zitzaidalako **esperantza** urrunarekin betiere. Xabier Mendiguren Elizegi

Holanda Berria aurki joango da **Esperantza** Oneko itsasmuturra jotzera. Felipe Juaristi

Ez uste **esperantza** gaizto batez iraintzen zaitudanik. Jon Muñoz

Han ez da gure ezinik gozatzen; han gure ezina eta **esperantza** antzua (haien) interes bihurturik daude; erlijio guztietan bezalaxe, badakit, baina barkamenik gabe. Iñaki Segurola

Esperantza zentzugabeak besterik ez, esan zidatek. Agustin Otsoa

Harrezkeroztik, **esperantza** eztiak ordezkatu du kezka krudela. Jon Muñoz

Esaten ari nintzaionari kasurik egingo ez balio bezala eta aldez aurretik baleki bezala **esperantza** faltsu bat eskaintzen ari nintzaiola. Joan Mari Irigoien

Dudarik ez, gazteriaren freskotasunak beti sorrarazten duela halako **esperantza** zoragarri bat. Menane Oxandabaratz

Esperantza engainagarria, batbedera atxikia zaiona haatik, nahiz halabeharrez abandonatu behar duen, eta hura galtzeak xangrin dagoeneko sobera egiazkoak, grina bizi batetik ezin bereiziak, ernatzen eta ugaritzen dituen! Jon Muñoz

Mutilak, bertigoarekin batera, uzten zidan hutsa betetzeko **esperantza** gazi-gozo bat ere. Anjel Lertxundi

Esaldi zati batzuk, beroaldi erretoriko batzuk, bat-bateko arrengurak, zenbait **esperantza** duda-mudazko. Jon Alonso

Kataluniarekin asko akordatzen nauk azken bolada honetan, zeren-eta hor daukak gure oso antzekoa den herri bat, **esperantza** politiko bertsuekin, estatu berberaren barruan. Mikel Hernandez Abaitua

Ez dut hitz handirik, baina mila hitz txiki ditut, eta haiekin eraikitzen ditut neure eguneroko **esperantzak**. Joan Mari Irigoien

Hemen dago biharko **esperantza**. Joan Mari Irigoien

Bakezko **esperantza** ahulenak gure indar guziak merezi ditu. Michel Oronoz

Iruditu zitzaigun sentimendu nahasiz hartu zuela berri hori: bazuen nolabaiteko **esperantza** histeria besterik ez izateko. Xabier Olarra

Iraganeko urteetan hirian bizi ondoren geroko **esperantzarik** gabe geldituak zirelako. Felipe Juaristi

Erreportaia iluna da, **esperantzarik** gabekoa, bainan egiazkoa. Herria

Azken **esperantzari** eutsi beharraren inertziak pentsarazten zion, artean ere, Sergio itzulia egon zitekeela. Joan Mari Irigoien

Hori sinetsirik, edo beren buruei, gehiagoko **esperantzarik** gabe, egia zela sinetsarazirik, Joanes eta bertze soldaduak kamioietara igan ziren. Eneko Bidegain

Benetako mirariak egiten baititu idazte hutsak: minak sendatzen, ametsak bermatzen, galdutako **esperantza** berreskurarazten. Imanol Zurutuza

Boteak 10, erreferak **esperantza**. Michel Oronoz

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arafat exiliotik itzuli zenean, eta PAN abian jarri zutenean, **esperantza** zirrikitu bat piztu zen jendearengan. Katalunian bertan ere, ez daudela inondik ere hemen ditugun **esperantza**-giroa eta borroka-nahia. Berria - Mundua

Bozka hori **esperantza** bozka bat da, Baionako ezker osoarentzat. Berria - Euskal Herria

Imajinatzen nuen haizeak ekarritako **esperantza**-doinuak kantatzen arituko zela Mahmad Xekho-rekin, saza jotzen zuen kantari handi argal harekin. Juan Kruz Igerabide

Gero eta ilunago eta goibelago zeuden denak, ez zioten elkarri **esperantza**-hitzik esaten, ikara beltza sentitzen zen inguruka. Fernando Rey

Esperantza -emaile diren ber, ipuinak nahiago!! Txillardegi

- **Esperantza** hari mehe batekin -esan nion-. Edorta Jimenez

Bidaiara huts-hutsik abiatzeko ausardiarik gabe, ez zitzaion **esperantza** izpi bat falta izan, eta Jainkoari eskatu zion zerura eraman zezan. Joxemari Iturralde

Hura ere bitalista zen, ironikoa, **esperantza** izpitxo bat falta bazuen ere. Patxi Ezkiaga

Esperantza poxi bat ere ematen zidan horrek, hala ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Sebastiao lehen egunean bezala ageri zen, begia ekialdera buruz beti, atzean utzitakoaren oroitzapen zimela bainoago geroan aurki zitekeenaren **esperantza** lorea gogoan zuela. Felipe Juaristi

Pelloren jarraitzaileek bizi zutèn eta sentitzen zutèn **esperantza** marko batean sartzeko modukoa zen. Joan Mari Irigoien

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Josu Jon Imazek «bake **esperantzaz** mintzo diren mesias politikoen mezuen eta ETAren bonben errealitatearen artean dagoen kontraesana» aipatu zuen atzo, Radio Euskadin egin zioten elkarrizketan. Berria - Euskal Herria

Bere hirira itzuli zenean, bere burua baino maiteagoa zuen emakumea ikustera joan zen, hari diosal egitera eta, beti bezala, bere maite-**esperantza** puztuak azaltzera. Felipe Juaristi

Haurdunaldian gaizki elikatzen direnen seme-alabek bizi **esperantza** «laburragoa» dute. Berria - Gaiak

Ez zieten hiru eguneko bizi **esperantza** emaiten. Eneko Bidegain

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako emakumezkoaren bizitza-**esperantza** (83,4 urtekoa) munduko bigarrena da, Japoniako tasaren ondoren; gizonezkoarena, berriz, 75 urtekoa da. Berria - Euskal Herria

Beldur ninduan, badakik, familia-**esperantzan** geratuko ote zen. Irene Aldasoro

Porrotean ez dago inolako gogoberotasun **esperantzarik**. Josu Zabaleta

5 *esperantza bide* *(orobat* ***esperantzabide****)*

Aro berri bat hasten denean, **esperantza bide** bat zabaldu ohi da, eta Imazen diskurtsoa argia eta irekia izan zen. Berria - Euskal Herria

Dolore handia gaindituz, **esperantza bidea** dela nagusi, daukute erran predikariak eta lekukotasun barnakor desberdinek. Herria

Mauleko gazte andana pastoralaz interesatuta izatea bihotz altxagarri eta **esperantza bide** dela nabarmendu zuen Arño Laphitzek. Berria - Kultura

Sujet horren karietara deus berririk ezin erran ere nizuke, arrunt gogoetagarria zaidan gertakari bat agitu ez balitz, ikarabide ala **esperantzabide** ote den oraino ez dakidana. Jon Muñoz

6 *esperantza izan* du *ad*

Gerrara elkarrekin joango ginen **esperantza** nuen. Agustin Otsoa

Urrikalduko zatzaizkit, artatuko nauzu; zugan baizik ez dut **esperantzarik**. Jon Muñoz

7 *esperantzetan* *adlag* haurdun.

Ezkondu aitzin **esperantzetan** izatea arazo bat zen, baina Joantto Ithurbide bezalako gizon batengandik izatea, are gehiago. Elena Touyarou

Ala gizon zahar hark ezarria zuen neska hura **esperantzetan**? Daniel Landart

Hasteko, jendeek erran zuten neska hura, Enrieta, Bittorrengandik **esperantzetan** gertatu zela eta, hori jakitearekin, Gehexan Jaureneak arbasoen ilobi aitzinean zin egin zuela familiaren desohorea zurituko zuela Behin horrela **esperantzetan** zen neskatxa bat ekarri zieten. Elena Touyarou

· Nire egoeraz pentsatzen nuenean, ez nituen erabiltzen normalean erabiltzen diren hitzak, ez "haur bat espero dut", ez "haurdun nago", eta are gutxiago "haur-**esperantzatan** nago". Joseba Urteaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ateratzeko esperantza (4); **aurkitzeko esperantza** (8); **azken esperantza** (6); **badut esperantza** (4); **baina esperantza** (10); **banuen esperantza** (4); **baten esperantza** (12); **bere esperantza** (8); **berriak esperantza** (4); **bizi esperantza** (8); **da esperantza** (5); **delako esperantza** (4); **den esperantza** (17); **diren esperantza** (7); **dituzten esperantza** (4); **du esperantza** (9); **duen esperantza** (15); **duen esperantza agertu** (4); **dut esperantza** (6); **duten esperantza** (7); **duten esperantza agertu** (4); **egiteko esperantza** (7); **ere esperantza** (5); **esperantza agertu** (25); **esperantza agertu du** (4); **esperantza agertu zuen** (17); **esperantza apur** (4); **esperantza atxikitzen** (6); **esperantza azaldu** (5); **esperantza badu** (6); **esperantza badut** (4); **esperantza bakarra** (10); **esperantza bat** (15); **esperantza da** (8); **esperantza dauka** (4); **esperantza daukat** (4); **esperantza du** (21); **esperantza duela** (4); **esperantza dugu** (12); **esperantza dut** (13); **esperantza dute** (26); **esperantza emaile** (4); **esperantza eman** (5); **esperantza ere** (10); **esperantza eta** (27); **esperantza ez** (18); **esperantza ezin** (4); **esperantza faltsuak** (6); **esperantza gabeko** (4); **esperantza galdu** (14); **esperantza galtzen** (8); **esperantza gutxi** (9); **esperantza gutxirekin** (4); **esperantza guztia** (9); **esperantza guztiak** (9); **esperantza handi** (6); **esperantza handia** (15); **esperantza handiak** (8); **esperantza handirik** (26); **esperantza handirik gabe** (7); **esperantza hori** (4); **esperantza horrek** (6); **esperantza horrekin** (8); **esperantza iturri** (5); **esperantza izan** (15); **esperantza izateko** (4); **esperantza izpi** (13); **esperantza izpi bat** (11); **esperantza neukan** (4); **esperantza nuen** (7); **esperantza oneko** (8); **esperantza oneko lurmuturra** (4); **esperantza piztu** (6); **esperantza sortu** (5); **esperantza zeukan** (7); **esperantza zuen** (12); **eta esperantza** (64); **ez du esperantza** (5); **ez esperantza** (4); **galdu esperantza** (4); **geroko esperantza** (5); **gure esperantza** (12); **horrek esperantza** (4); **ikusteko esperantza** (7); **izateko esperantza** (10); **kilo esperantza** (9); **lortzeko esperantza** (12); **nire esperantza** (9); **nuen esperantza** (6); **zen esperantza** (8); **ziren esperantza** (4); **zuen esperantza** (12); **zuten esperantza** (4)

aurkitzeko esperantzan (4); **aurkitzeko esperantzaz** (5); **baten esperantzan** (5); **batere esperantzarik** (7); **batere esperantzarik gabe** (5); **den esperantzan** (4); **du esperantzarik** (6); **duelako esperantzan** (4); **esperantzak eta** (7); **esperantzaren mezulari** (7); **esperantzari leiho** (9); **esperantzari leiho bat** (8); **esperantzarik ez** (21); **esperantzarik gabe** (35); **esperantzarik gabeko** (16); **esperantzaz betea** (12); **esperantzaz beteak** (5); **esperantzaz beterik** (11); **esperantzaz eta** (4); **eta esperantzak** (14); **eta esperantzaren** (8); **eta esperantzari** (5); **eta esperantzarik** (5); **eta esperantzaz** (11); **ez du esperantzarik** (5); **gure esperantzak** (5); **ikusteko esperantzan** (4); **inolako esperantzarik** (5); **inongo esperantzarik** (4); **zelako esperantzan** (4); **zen esperantzan** (5); **zuen esperantzan** (5)

esperantxaz beterik (4); **eta esperantxa** (6)

---

esperantzabide ik **esperantza 5**.

---

esperantzadun *izlag* esperantza duena.

Badakit badela pesimismo modu bat ("onenak emanda gatxaudek, eta txarrenak hartzeko" dioenarena, adibidez), **esperantzadun** optimismo etsiaren aldean, beste sanidade bat adierazten duena edo dakarrena, beste grazia bat, indar bat, beldurrik eza eta kasik bizipoza ere bai. Iñaki Segurola

---

esperantzagabe *izond* esperantzarik ez duena.

Solaskideari begiratu gabe, bere artean marmarka hasi zen; gero, marru baten antzo, neronek ere entzuteko moduan, galde **esperantzagabea**: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin ditiat ahaztu uda amaierako azken egun beroak, ez eta basoen malko **esperantzagabeak** euripean. Eskarne Mujika

---

esperantzagabetasun *iz* esperantzagabearen nolakotasuna.

Bederatziehungarren, **esperantzagabetasun**. Iñaki Arranz

---

esperantzagarri *izond* esperantza ematen duena.

Arrazoi ezberdinak ematen dituzten arren, batetik eta bestetik dioskue une **esperantzagarriak** bizi dituela gure Euskal Herri honek. Berria - Euskal Herria

Puntu **esperantzagarriak** ere badira. Herria

-Ez al da handiegia zure jakingura? -galdetu zion, irribarre **esperantzagarria** ezpainetan. Migel Angel Mintegi

Bi hitzez, etorkizun **esperantzagarria**. Berria - Mundua

Ondorio baikorrak eta **esperantzagarriak**. Berria - Euskal Herria

Pantaila modu **esperantzagarrian** argitu da sare eske ari den radarraren irudiarekin. Aingeru Epaltza

Ez diat uste azken bide horretakoa izan denik nirea, nahiz eta **esperantzagarria** izan niretzat eta nire semearentzat. Juan Kruz Igerabide

Ibarguenen esanetan, «datuak ez dira batere **esperantzagarriak**», eta hori izan da Bilbondoren eskaerari ezezkoa emateko arrazoi nagusia. Berria - Ekonomia

---

esperantzakor *iz* esperantza duena.

Hor, logika bat segitzen baldin badu, hor **esperantzakor** izanen gira. Menane Oxandabaratz

---

esperantzaño *iz adkor* esperanzatxoa.

Azken une arteko **esperantzaño** bat mantendu arren, azkenean golik egin gabe bukatu zuten baionarrek. Berria - Kirola

---

esperantzatsu **1** *izond* esperantzaz betea.

Berrikuntzak eta iniziatiba **esperantzatsuak**, ordea, ezker abertzalearen eskutik espero dira hemendik aurrera. Berria - Harian

Normaltasuneranzko txango **esperantzatsua**. Karlos Linazasoro

Oinaze goibeletan itotako morrosko sendo haien aurpegi minduetan, aspaldi hartan ez bezala, goiztiri **esperantzatsu** baten irribarre gozo-eztia hozitzen bide zen, izuti. Txillardegi

Azken hitzak **esperantzatsuak** bota bazizkigun ere, bukaeran "saiatuko naiz" hotz bat adierazi zuen, neurriz kanpoko ilusiorik egin ez genitzan, noski. Karlos Linazasoro

2 (adizlagun gisa)

Eta bagenuen, bestalde, **esperantzatsu** egoteko arrazoirik. Joan Mari Irigoien

Badirudi, halaber, **esperantzatsu** bizi nahi zituela zahartzaroko urte haiek. Joan Mari Irigoien

Bere predikuan, Molères Apezpikuak **esperantzatsu** agertzerat deitu gaitu. Herria

-Ez, ezta? -esan zuen beronek, **esperantzatsu**. Jon Arretxe

---

esperantzatxo *iz adkor* esperantza xumea.

-Mutilak bere partida horietako bat egiten badu... -eta puntu suspentsibo haietatik eskegi zuen bere **esperantzatxoa**. Joan Mari Irigoien

Umbertok hauspotzen zidan **esperantzatxo**-edo horrekin eusten nion, bada, egunen gurpilari. Anjel Lertxundi

---

esperatu, espera(tu), esperatzen **1** du *ad* espero izan; zain egon.

-Ez duzu hurbiltasunik **esperatu** behar nigandik, eta ez didazu horren hutsik leporatuko. Pello Salaburu

Eta hori espero genuen berberak pasatu ginen euskara **esperatzera**, hau ere zerutik. Pello Salaburu

Jostuna segizio handiarekin etorri zen, eta ez neskak bakarrik, normalean **espera** zitekeen bezala. Matías Múgica

Batez ere, ez dirudi inbestimenduak egiten diren alorretan **esperatzen** ahal diren emaitzak jasotzen direnik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bittor sendiaren mendekatzera etorriko zela **esperatzen** zuen. Itxaro Borda

Ezin nuelako deusik **esperatu** heriotza baizik. Fernando Rey

-Beraz, ezin dut **esperatu** inolako laguntzarik zuregandik? Fernando Rey

Izan ere, ezin zuten besterik **esperatu**. Fernando Rey

Esperatu beharra omen zegoen oraindik ere gazteak ginelako, eta bitartean lan bat aurki nezakeen eta agian nire unibertsitateko ikasketekin jarraitu. Fernando Rey

Orduak pasatu nituen alabaina, Joaquim gaixoaren antzera, damuz beterik, ene oinarrizko herri minaren ezabatzen saiatzen, Mamoud Darwichen olerkiak hor berean irakurtzen, agian **espera** eta ustez merezi nezakeen amodio erraldoiaren aiduru. Itxaro Borda

-Kersko -esan nuen nik-, bihar arte **esperatu** beharko duzu, ba; ibaiaz bestaldean dago. Fernando Rey

Ederki, **esperatuko** dugu. Fernando Rey

Doloreak jasaten ikasiak ginen, panpox izateko bezala euskaldun jarduteko isilik sufritu behar baitzen baiki, frustrazioengatik irauten, hurbilduko zitzaigun askatasun goiztiria arte **esperatzen**. Itxaro Borda

Burua hutsik eta kezkarik gabe, egunean zenbait orduz bederen, lasai ederrean, elkarrengandik gauza handirik **esperatu** gabe. Fernando Rey

2 (era burutua izenondo gisa)

Jaialdia amaitzeko ekitaldi honetako artista **esperatuena** gorde dute: Paco de Lucia gitarra jotzaile andaluziarra. Berria - Kultura

Jaialdiko artistarik **esperatuenetakoa** da. Berria - Kultura

Dagoeneko ikusgai dago uda honetako obra **esperatuenetakoa**, Animalarioren *La Boda de Alejandro y Ana.* Berria - Kultura

---

esperientza ik **esperientzia**.

---

esperientzi ik **esperientzia**.

---

esperientzia *(orobat **esperientza** g.er., **experientzia** g.er. eta **esperientzi** g.er.)* **1** *iz* aritze eta erabiltzetik ateratzen den ezaguera; ezaguera hori hartzeko bizi izan den gertaera. ik **eskarmentu**.

Baldintzak: euskara eta frantsesa menperatzea, **esperientzia** liburu salmentan edo komertzioan, liburuen ezagutza. Herria

5 urteko **esperientzia**, bigarren mailako ikastetxe batean. Herria

Bakoitzak baitu bere **esperientzia**, urteek zama gisa batzuetan, altxor gisa besteetan, nahi gabe gainera jarri diotena, eta **esperientzia** hau, nahi izanez gero ere, ez baita hain erraz baztertzen eta bide alboan uzten. Pello Salaburu

Irakurlea edo entzulea hunkitzeko gaitasuna, honek bere sentitzen duen **esperientzia** bat hitzetan adierazia aurkitzen duelako. Xabier Mendiguren Elizegi

Esperientzia, bere izatez, oroitze hutsa da, errepikatze hutsa, eta zinez bizi izateak ez du inolako maisurik onartzen. Patziku Perurena

Gure lagunak ezin izan zuen **esperientzia** haren ondoriozko trauma gainditu. Jon Arretxe

Esperientzia ez ezik, eskarmentua ere izan zen hura niretzat, eta ez nolanahikoa. Joxerra Garzia

Arrasateko **esperientzia** izan da euskal kooperatibismoaren ekimen nagusia. Iñaki Heras

Neure gazte denboran bizi izandako **esperientzia** bat kontatu nahi nuke. Bernardo Atxaga

Baina **esperientzia** honetatik gauza bat ikasi diat, bakoitzak bere interesen arabera jokatzen duela. Joan Mari Irigoien

Esan dut hura nire lehen **esperientzia** zela eta, halako kasuetan normala den bezala, apuntatu baino lehen tiroa egiteko arrisku handian nengoela, Ernest Shackletonen **esperientzia** Antartidan galduta ibili bitartean. Joan Mari Irigoien

Ez zuten atxilotu, baina **esperientzia** ez omen zen batere gozoa izan. Iñaki Iñurrieta

Banuen, halarik ere, aitzinetik, Elbirarekin bizi izan nuen **esperientzia**, adierazten zidana ezen lurrean bizi zitezkeen eta zerurako bidean jar gintzaketen mementurik ederrenak ere euli-farfailen hegoak eta haien hegaldiak bezain hauskorrak izan zitezkeela. Joan Mari Irigoien

Nik etxean izandako **esperientzia** beste familia euskaldun zenbaitetan ere gertatu izan da. Pello Salaburu

Ez digute mundu hori ematen: guk geuk egiten dugu geure mundua etengabe; **esperientzia**, kategorizazioa, oroimena eta loturak baliatuz, hain zuzen. Xabier Olarra

Esperientzia geneukan, horrelako txosten asko egin izan ditugulako Elkarri-n nazioarteari begira. Berria - Harian

Esperientzia duten langabeek besteek baino bi aldiz azkarrago lortzen dute lana. Berria - Ekonomia

Moderniaren hastapenetan badago **esperientzia** bat **esperientziaren** kontzeptua bera arras eraldarazi duena -filosofia grekoarekiko, adibidez-, **esperientzia** razional edo esperimentuaren esanahira ekarriz. Askoren artean

Bere egia ez da Arestiren egia; bere egia bere **esperientzia** da, zurrumurruka kontatzen den epika txikia, zalantza batean dagoena. Ana Urkiza

Edertasunaren **esperientzia** sentimenen mende dago soilik. Askoren artean

Esperientzia emango digu horrelako partidak jokatzeak, baita jokatzen jarraitzeko konfiantza ere. Berria - Kirola

Bere **esperientzia** osatzeko, etengabe irakurtzen zuen. Xabier Olarra

Hemezortzi hilabeteko **esperientzia** hori kontatzen du *Courier Sud* eleberrian. Josu Zabaleta

Horregatik erabaki nuela estra moduan lan egitea, ustez eta **esperientzia** hartzeko modu hoberena zela hori. Fernando Rey

Zerbait horretara gidatzen du arrazoimenak **esperientziatiko** bere inferientzietan, eta berari jarraiki estimatzen eta neurtzen du arrazoimenak bere erabilera enpirikoaren maila. Ibon Uribarri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nazioartean **esperientzia** handia duten jokalariak baditu Larvik taldeak. Berria - Kirola

Bi taldeek badituzte **esperientzia** handiko jokalariak. Berria - Kirola

Agirrek **esperientzia** zabala du Eusko Jaurlaritzan. Berria - Ekonomia

Esperientzia luzeko adituak. Berria - Euskal Herria

Ezkondu eta urtebetera, 1861ean, Siddal-ek abortu bat izan zuen, eta **esperientzia** triste horrek ez zion berez eskasa zuen osasuna hobetu. Ramon Saizarbitoria

Maitasunik gabeko sexua **esperientzia** hutsala da, baina **esperientzia** hutsalen artean onenetakoa. Berria - Kultura

Palestina eta Irak: okupazioaren **esperientzia** tragikoa eta horren ondorioak. Berria - Kultura

Auschwitz da, noski, **esperientzia** traumatiko hori laburbiltzen duena: 1929an jaio zen Imre Kertész eta 1944an, hamabost urte zituela, Auschwitzera eraman zuten naziek. Urtzi Urrutikoetxea

Esperientzia bizi-bizia da literatur obra oro, lehenaren oraina gauzatzen baitu, eta oraina etorkizunerako prestatzen. Anjel Lertxundi

Minbiziari aurre egitea ere **esperientzia** konparaezina eta aberasgarria da bizitzan, baina ez nau batere tentatzen. Arantxa Iturbe

Izan zezakeen zentzurik nerabe batek **esperientzia** umilgarria bizi izandako halamoduzko hotela deskribatzeak. Bernardo Atxaga

Gertakizun, inpresio eta **esperientzia** berri horien guztien ostean nekatuta eta loguraz nengoenez, luze gabe lokartu nintzen. Urtzi Urrutikoetxea

Historia pertsonal hau **esperientzia** partikular bat da, ez filosofia bat. Joxe Azurmendi

Nola edo hala **esperientzia** kritiko eta autokritiko batetik sortu zelako Elkarri. Berria - Euskal Herria

Funtsezko baieztapena ez da oinarritzen inolako autoritatean, bere **esperientzia** pertsonalean baizik. Askoren artean

Esperientzia pertsonal bat aipatuko dut. Berria - Mundua

Esperientzia bikaina izan zen futbola beste aldetik bizitzea. Berria - Kirola

American Beauty oso **esperientzia** ona izan zen niretzat, izugarrizko ezusteko goxoa. Berria - Kultura

Aita-amak izatea **esperientzia** paregabea da, benetan ederra. Luis Elberdin

Orgasmoa **esperientzia** asaldatzailea da, plazer handikoa eta indartsua, eta maitasuna, esker ona, lasaitasuna eta ongizatea ekarri ohi du. Luis Elberdin

Zure **esperientzia** literarioaren oinarrian Tom Sawyer dago, beraz. Ana Urkiza

Espazioa "gure adimenaren oinarrizko kategorietako bat" da (Kant), mundu errealaz dugun **esperientzia** aplikatua. Josu Zabaleta

Kolorearen ikusmena gure **esperientzia** osoaren zati bat da bizitza errealean, gure kategorizazio eta baloreei lotuta dago; bizi-munduaren zati bihurtzen da, gure zati, gutariko bakoitzarentzat. Xabier Olarra

Bere lehen **esperientzia** erabakigarria, errukiarena izan zen. Askoren artean

Laburpenaren bi zatietan izan dugun lankidetza oso **esperientzia** pozgarria izan da niretzat. Iñaki Mendiguren

Zerk bereizten du **esperientzia** estetikoa gainerako **esperientzietatik**? Askoren artean

Harreman horiek eta elkarren arteko jokamoldea gidatzen edo eratzen duten balioak, gizarte bakoitzak ditu bereak, bere **esperientzia** historiko-sozialaren arabera. Joxe Azurmendi

Bi mundu-gerren **esperientzia** suntsigarriaren ondoren, ez zegoen ziur munduaren batasun politikoa ohiko "knock-out kolpe" beldurgarririk gabe lortuko ote zen. Iñaki Mendiguren

Denboraldi luzeetan **esperientzia** mistikoetara emana bizi izan zen, eta sarri askotan Jainkoarengan murgiltzen zen estasian. Askoren artean

Printzipio honen arabera **esperientzia** ahalgarri baten anizkunkian homogeneotasuna aurresuposatzen da halabeharrez. Ibon Uribarri

Gure autobiografia idazten dugunean [...] bizitako **esperientzia** gehienak ezkutatu egiten ditugu. Berria - Gaiak

Ikuslearen denbora hori ez da denbora objektibo bat, gurea dugun denborazko **esperientzia** baizik. Josu Zabaleta

Benetako **esperientzia** bat literarioki adierazteko ahalegina egiten ari da. Bernardo Atxaga

Hainbat proposamen egin zituen, bere aurreko **esperientzia** baliatuz «arau sistema bat ezartzeko. Berria - Mundua

Talde huntan giren 9 kantari eta musikarientzat gaitzeko **esperientzia** izan da ibilaldi hori. Herria

Itxurazko **esperientzia** (sentimenena) ez da benetako **esperientzia**, razionala. Askoren artean

Zer-nolakoa da Descartesek aipatzen duen zuzeneko **esperientzia**? Askoren artean

-Gaitzeko **esperientzia** izan da niretzat! -jakinarazi zuen, Gehexani zuzenduz-. Elena Touyarou

Ikusmenezko **esperientzia** guztietan bilbatzen zaigu kolorea, eta leku zentrala du gure oroimen eta irudimenean, gure munduaren ezagueran, gure kultura eta artean. Xabier Olarra

Sokratesek *Fedon, Sinposioa* eta *Politeian* esan bezala, bi mundu bereizten dira, baina gure sentipenezko **esperientzia** mundu adigarriarekiko parte-hartzearen bidez da posible. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurrengo bi ataletan, aldiz, **esperientzia**-poesiatik hurbilago ibili da. Berria - Kultura

Esan beharra nion Zé Luisi gaztetxoek aspertzen nindutela, ezin nuela haien heldutasun-falta jasan, haien **esperientzia**-falta. Karlos Zabala

Ezjakintasun aroko mendeak eurak ere, moral publikoa moral pribatuari men egitera behartutako garaiak, jakinduria eta **esperientzia**-iturri dira mende argituentzat. Juan Martin Elexpuru

Kontua da jakitea nola **esperientzia** esparru batek, dagoeneko kokatua, dagoeneko neurri bateraino artikulatua, baina berehalako erabilpen praktikoz edo balioespen eraginkorrez zeharkatua, osatu ahal izan duen eremu zientifikoa. Xabier Arregi

Xaflen inguruan zer **esperientzia** mota daude? Berria - Harian

Museoa **esperientzia** lantegia izatea nahi dugu jende guztiarentzat. Berria - Kultura

Aldatu da baieztapen horien eta beste proposizio batzuen arteko harremana, aldatu dira eurak erabiltzeko eta berriz txertatzeko baldintzak, **esperientzia**-arloa, ahalezko egiaztapenak, eurei dagozkien konpondu beharreko arazoak. Judizio enpirikoetan edo **esperientzia**-judizioetan honek ez digu batere zailtasunik sortzen. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Autismoan falta dena ez da atxikimendu orokorra baizik eta giza **esperientzia** konplexu zenbaitekin loturiko atxikimendua. Xabier Olarra

Erbeste arraro hartatik itzuli zenean, ahulago topatu zuen Marrok Adela, gainbehera batean, bikote-**esperientzia** guztiek porrot eginda. Juan Kruz Igerabide

Frantziskoren bizi-**esperientzia** eta proiektua. Askoren artean

Sekula inori kontatu ez zizkion gauzak irakurri zituen: oreinak ehizatzeko aitari arma lapurtu zionekoa, adibidez, edo bere lehenbiziko sexu-**esperientzia** bakartia. Xabier Aranburu

Asisko Frantziskoren irudi zoragarria; haren bizitza eta historia, haren giza eta kristau **esperientzia**, haren Ebanjelioaren irakurketa. Askoren artean

Aspaldi luze hartan, esaterako, sexu **esperientzia** bakarra izan zuten, horrela deitu ahal bazaio hiriko ospitale nagusian izandako hazi-isurketari. Jon Arretxe

Film batzuek hobeto "kudeatzen" dute emozioen zikloa, ikusleari, narrazio-egitura ongi menderatuz (identifikazio-ikuspuntuak aldatuz, adibidez), "bere emozio-**esperientzia** integratzeko edo lantzeko aukera emanez". Josu Zabaleta

Hasieran bere konbertsio-**esperientzia** kontatzen digu hitz gutxitan: [...]. Askoren artean

Bestetan ez bezala, bere barne-**esperientzia** borborka ateratzen zaio Klarari, adiskide eta alabari bere Jaunaz hitz egiten dionean. Askoren artean

Lockeren kasuan, sentimen-**esperientzia** subjektiboak kanpoko mundu materialaren errepresentazioa eratzen du. Askoren artean

Begiradak kontuan hartu behar du hizkuntz **esperientzia**, funtsean, **esperientzia** estetikoa dela. Berria - Euskal Herria

Kontabilitate **esperientzia**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

antzeko esperientzia (7); **badu esperientzia** (5); **badut esperientzia** (5); **baina esperientzia** (29); **baino esperientzia** (5); **barneko esperientzia** (9); **baten esperientzia** (11); **benetako esperientzia** (5); **bere esperientzia** (44); **beren esperientzia** (7); **beste esperientzia** (11); **bildu esperientzia** (5); **bizi esperientzia** (10); **bizi izandako esperientzia** (10); **bizitako esperientzia** (6); **bizitzako esperientzia** (6); **da esperientzia** (25); **den esperientzia** (8); **du esperientzia** (15); **dudan esperientzia** (8); **duen esperientzia** (23); **dugu esperientzia** (5); **dugun esperientzia** (13); **dute esperientzia** (5); **duten esperientzia** (7); **edertasunaren esperientzia** (5); **edo esperientzia** (18); **edo eta esperientzia** (5); **ere esperientzia** (21)

esperientzia aberasgarria (8); **esperientzia ahalgarri** (49); **esperientzia ahalgarri batean** (11); **esperientzia ahalgarri baten** (12); **esperientzia ahalgarri ororen** (9); **esperientzia ahalgarria** (6); **esperientzia ahalgarrian** (8); **esperientzia ahalgarriarekin** (12); **esperientzia ahalgarriaren** (52); **esperientzia ahalgarriari** (6); **esperientzia bakarra** (7); **esperientzia bat** (41); **esperientzia batean** (9); **esperientzia baten** (18); **esperientzia batetik** (5); **esperientzia bera** (16); **esperientzia beraren** (5); **esperientzia bere** (6); **esperientzia berri** (7); **esperientzia berri bat** (5); **esperientzia berria** (7); **esperientzia berriak** (7); **esperientzia bikaina** (5); **esperientzia bikaina izan** (5); **esperientzia bizi** (6); **esperientzia da** (22); **esperientzia dela** (5); **esperientzia du** (5); **esperientzia duen** (7); **esperientzia dute** (6); **esperientzia duten** (8); **esperientzia ederra** (5); **esperientzia ere** (9); **esperientzia eta** (77); **esperientzia ez** (15); **esperientzia ezagutza** (7); **esperientzia falta** (13); **esperientzia gehiago** (13); **esperientzia gogorra** (5); **esperientzia gutxi** (9); **esperientzia guztiak** (6); **esperientzia handia** (41); **esperientzia handia dauka** (6); **esperientzia handia du** (8); **esperientzia handia duten** (5); **esperientzia handiagoa** (10); **esperientzia handiko** (24); **esperientzia handikoa** (6); **esperientzia handikoak** (5); **esperientzia hark** (11); **esperientzia hartzen** (5); **esperientzia hau** (15); **esperientzia honek** (5); **esperientzia hori** (40); **esperientzia horiek** (9); **esperientzia horrek** (11); **esperientzia horren** (11); **esperientzia horretan** (8); **esperientzia horretatik** (5); **esperientzia horri** (5); **esperientzia hura** (16); **esperientzia irakaskuntzan** (9); **esperientzia izan** (38); **esperientzia izan da** (14); **esperientzia izan zen** (5); **esperientzia izango** (5); **esperientzia kontatu** (7); **esperientzia kontatzeko** (5); **esperientzia kontuan** (6); **esperientzia luzea** (8); **esperientzia ona** (19); **esperientzia ona izan** (13); **esperientzia oro** (8); **esperientzia ororen** (27); **esperientzia ororen aurretik** (11); **esperientzia orotatik** (8); **esperientzia oso** (17); **esperientzia pertsonala** (8); **esperientzia polita** (7); **esperientzia zabala** (11); **esperientzia zerbait** (5); **esperientzia zerbait ukaitea** (5); **esperientzia zoragarria** (5); **esperientzia zuzena** (13)

eta esperientzia (143); **eta esperientzia hori** (8); **eta esperientzia zerbait** (5); **euskaraduna esperientzia** (8); **ez da esperientzia** (7); **ezein esperientzia** (11); **giza esperientzia** (7); **gure esperientzia** (26); **hainbat esperientzia** (5); **har esperientzia** (12); **haren esperientzia** (7); **harrezko esperientzia** (7); **hau esperientzia** (9); **hauek esperientzia** (7); **horrelako esperientzia** (5); **izan da esperientzia** (6); **izandako esperientzia** (20); **kanpoko esperientzia** (7); **lan esperientzia** (6); **lehen esperientzia** (21); **nahikoa esperientzia** (5); **neure esperientzia** (9); **nire esperientzia** (26); **nolako esperientzia** (10); **nolako esperientzia izan** (7); **nuen esperientzia** (8); **oro har esperientzia** (12); **oro harrezko esperientzia** (7); **oso esperientzia** (19); **oso esperientzia ona** (5); **sekulako esperientzia** (6); **urteko esperientzia** (31); **zen esperientzia** (6); **zenbait esperientzia** (7); **zuen esperientzia** (14)

aurreko esperientziak (5); **baina esperientziak** (6); **baizik esperientziaren** (5); **bere esperientziak** (5); **bere esperientziaren** (8); **beren esperientziak** (6); **da esperientziaren** (5); **duen esperientziaren** (8); **esperientziak berak** (8); **esperientziak ematen** (5); **esperientziak erakusten** (21); **esperientziak erakusten digu** (6); **esperientziak erakutsi** (11); **esperientziak erakutsi digu** (6); **esperientziak eta** (21); **esperientziak ez** (12); **esperientziak ezagutu** (7); **esperientziak inoiz** (5); **esperientziak trukatu** (7); **esperientziak trukatzeko** (13); **esperientzian oinarrituta** (7); **esperientziaren ahalgarritasunaren** (15); **esperientziaren arabera** (16); **esperientziaren aurretik** (5); **esperientziaren baldintza** (8); **esperientziaren batasun** (5); **esperientziaren berri** (18); **esperientziaren berri eman** (9); **esperientziaren bidez** (11); **esperientziaren bitartez** (24); **esperientziaren eta** (14); **esperientziaren mugez** (9); **esperientziaren mugez goiti** (8); **esperientziaren objektu** (20); **esperientziaren objektua** (5); **esperientziaren objektuak** (6); **esperientziaren objektuei** (5); **esperientziaren objektuen** (11); **esperientziaren ondoren** (10); **esperientziari buruz** (5); **esperientziarik ez** (15); **esperientziarik gabeko** (5); **esperientziatik abiatuta** (9); **esperientziatik eratorri** (5); **esperientziatik sortzen** (6); **esperientziaz eta** (5); **esperientziaz zekien** (6); **eta esperientziak** (32); **eta esperientzian** (5); **eta esperientziarekin** (5); **eta esperientziaren** (31); **eta esperientziarik** (6); **eta esperientziaz** (7); **ezein esperientziatan** (9); **inolako esperientziarik** (8); **izandako esperientziak** (6); **izandako esperientziaren** (9); **nire esperientziak** (6); **nire esperientziaren** (8); **nire esperientziatik** (5)

---

esperientziadun *izond* esperientzia duena.

Alboan, gainera, gidari **esperientziaduna** izan zuen, Mike Grist, Ari Vatanenen albokoa izandakoa. Berria - Kirola

Taldea gaztea baina **esperientziaduna** da, eta guztiei aurten ahalegin berezia egiteko eskatu nahi diet. Berria - Kirola

Talde indartsua eta **esperientziaduna** aurrean, pabiloia gainezka, jarraitzaileak etengabe oihuka. Berria - Kirola

Ez da horrenbeste kopuru kontu bat, bai ordea, bozketen garai horretan militar **esperientziadunak** bertan egotea, pentsatzen ahal baita, indarkeria areagotu daitekeela orduan. Berria - Mundua

Bidarraiko Barberaenea ostatuak bilatzen du sukaldari **esperientziadun** bat, gizon edo emazte. Herria

Hasiberriak izan edo **esperientziadunak** izan, harri berean estropezu egiten jarraitzen dute. Berria - Kirola

Amatur gazte bat eta berezko **esperientziadun** bat ariko dira hor parean ortzegun guziz, 3 1/2 tan hasirik eta bi partida eginez aratsalde bakar. Herria

Esperientziadun langabeentzat, aldiz, 45 urtetik gorakoa izatea da oztopoa. Berria - Ekonomia

Aholkuak emango dizkiete aita-amek beren seme-alabei; kontsolamendua guraso **esperientziadunek** esperientzia gabekoei. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru ziren iheslariak, hirurak letoniarrak, **esperientziadunak**, aleman hizkuntzan eta inguruetako geografian adituak. Urtzi Urrutikoetxea

Hezkuntza arloan **esperientziaduna** izanik, marketina eta promozioa izango dira asmo horiek gauzatzeko erabiliko dituen tresnak. Berria - Mundua

---

esperientziagabe *izond* esperientziarik ez duena.

Zientziaren ogia zen, P. ren ogia, eta azken finean beraren jeneroa zen orobat, beraren eskutikoa; batek jakin profano **esperientziagabeok** zer egingo genuen, gure galduan, harekin. Juan Garzia

---

esperientziatxo *iz adkor* esperientzia xumea.

Nik ere bai baitut neure **esperientziatxoa**, bi errealeko txanpon haiekin neureganatua, haiekin ahalik eta dorrerik luzeenak osatu nahi nituenean: haiek ere, neurri batera iristen zirenean, hankaz gora egiten baitzuten, ezinbestean. Joan Mari Irigoien

---

esperientziazale *izond* esperientziaren zalea dena.

Hala agindu zuen errege Karlosek eta hala konplitu zen -konparaketak egiterakoan, tearen pozoikeria frogatzeko aukera ere ezin bada galdu errege **esperientziazale** hark! J.M. Olaizola "Txiliku"

---

esperimental *izond* esperimentuari dagokiona; esperimentu bidez gauzatzen dena; esperimentatzea dagokiona.

Nola karakterizatu jarduera **esperimentala**? Zein esperimentu-mota identifika daitezke eta nola gauzatzen dira? Askoren artean

Gombrichen iritzian, ia prozesu **esperimentala** da ikusmenezko pertzepzioa: itxaropen-sistema bat behar du aldez aurretik, eta itxaropen horien gainean osatzen dira hipotesiak, berehala egiaztatzen edo ezeztatzen direnak. Josu Zabaleta

Gaitzaren lehen fasean zegoen jendearen artean funtzio kognitiboak galtzeko prozesua moteldu nahi zuten tratamendu **esperimentalaren** bidez. Berria - Harian

Estasiak, Bonabenturarengan, Jainkoaren ezagutza **esperimentala** esan nahi du, giza ekintza natural ororen etetea edo gelditzea eragiten duena. Askoren artean

Hona hemen tesien kopurua arloka: 61 zientzia **esperimentaletakoak**, 61 gizarte zientzietakoak eta zuzenbidekoak, 48 osasun zientzietakoak, 27 humanitateetakoak eta 27 ikasgai teknikoetakoak. Berria - Euskal Herria

Bada jakintza bat, hastapen-hastapenetan dagoena, ordea, eta itxuraz oraindik aski lausoa dena, koloreen, forma batzuen eta abarren jarduerari buruzkoa, psikologia **esperimentalak**, soilak nahiz aplikatuak, aspaldi samarretik landu duena. Josu Zabaleta

Film **esperimental** batzuetan asko jokatu da baliabide horrekin, bat-bateko eten asko eginez. Josu Zabaleta

Zinema **esperimentalean** eskarmentu handia duen egilearen lana da, orain artean egindako bere filmik onena dugu, eta, jakina, industriaren parametroen barruan lan egiteko inolako asmorik ez du. Berria - Kultura

Aurten ere gauza arrunt bereziak izanen dira hala nola Golgoth 13 taldeak egiten duen musika **esperimentala**. Herria

Bi hilabete omen daramatza espazio horrek hutsik, baina lehendik musikari **esperimental** bat bizi ei zen bertan, pianoari sokak kendu eta soken ordez gomak jarri eta soinu berezi eta berriak aurkitu asmoz esperimentuak egiten zituena. Harkaitz Cano

Gauean jazz klasikoa, eta hasieran aipatu dudan Trakai gaztelura egin genuen bisitaldian, jazz **esperimentala**. Edorta Jimenez

Habanako talde gehienekin jo izan du, nola **esperimentalekin**, hala kontsagratuekin, Karl Marx antzoki erraldoian bezala, hotelik xumeenaren kafetegian. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arte esperimentala (4); **egungo arte esperimentala** (3); **esperimental bat** (3); **esperimental batean** (3); **esperimentala da** (4); **esperimentala eta** (4); **eta esperimentala** (4); **musika esperimentala** (4); **tratamendu esperimentala** (3); **zinema esperimentala** (3)

---

esperimentalismo *iz* jarduera esperimentalaren aldeko joera.

Euskal nobelagintzan **esperimentalismoa** artean ere indar betean zegoen garaian, 80ko hamarkadaren hasieran, euskal nobelagintzak istorioak kontatzeari lotu beharra zeukala aldarrikatu zenuen. Berria - Kultura

Euskal kultura **esperimentalismora** eta abangoardiara gonbidatzen du Oteizak. Berria - Kultura

«Parodia» hitza da egokiena, Olarraren ustez, liburua nolakoa den adierazteko; **«esperimentalismoa»** hitza ere erabili izan da. Berria - Kultura

Jon Alonsoren **esperimentalismo** ausarta. Berria - Kultura

---

esperimentalki *adlag* era esperimentalean.

Uhin elektromagnetikoak neurtzea **esperimentalki** gauza oso erraza bada ere (gure begiek ikusten duten argia adibidez), grabltatearen kasuan oso ezberdina da. Berria - Gaiak

Pisakoak matematikoki frogatua Gassendi zeritzan ene irakasle batek frogatu ahal izan zuen **esperimentalki**. Joan Mari Irigoien

V4 aldearen estimulazio magnetikoaren bidez sor daiteke **esperimentalki** kolorea, eta eraztun eta halo koloretakoak -kromatofen deritzetenak- "ikusaraz" daitezke hala. Xabier Olarra

Hori ez da egia, **esperimentalki**, eremu horren alde erabilgarriari dagokionez (erdiko aldea, fobeatik 30º-40º ingururaino); handik aurrera gure pertzepzioa lausoegia da, nolanahi dela ere, horrek espazioa atzemateko dugun moduan inolako eraginik izan dezan. Josu Zabaleta

---

esperimentatu, esperimenta(tu), esperimentatzen **1** du *ad* esperimentupean ezarri; esperimentua egin.

Tradizio laburreko hizkuntza batek aukera ugari eskaintzen ditu ia ezerezetik sortzeko, eraikitzeko, ikertzeko, **esperimentatzeko**, jolasteko, tradizio higatu eta ajetsuegi baten zamarik gabe bidea egiteko. Patziku Perurena

Guretzat oso garrantzitsua da **esperimentatzea** eta teoria hutsean ez geratzea. Berria - Harian

Nik ordezkatu egin behar nuen, laboratorioan **esperimentatu** beraren ideiok, eta gero, modurik bazen, berarekin batera, industrialki gauzatu. Juan Garzia

Azken urteotan, zenbait bertsolarik (gazteenek, jeneralean), bertso-saio formatu berri batzuk sortu eta **esperimentatu** dituzte. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ama, aldiz, ikasten ari zela erakusteko irrikaz, entzuten edo irakurtzen zuena **esperimentatzera** ausartzen zen inongo beldurrik gabe. Joseba Urteaga

Poeta batek **esperimentatzen** duena ez baita Poesia, material poetikoa baizik. Anjel Lertxundi

Betiraun guztitik hartutako kolpeen eraginez, hainbeste izan eta hainbeste aldakuntza jasanik, era guztietako mugidak eta elkartzeak **esperimentatuz**, azkenik gauzadi hau sortzeko eta irauteko moduko egituretara iritsi dira. Xabier Amuriza

Beste irudiztapen forma batzuk **esperimentatzen** ari da: Pontitoren maketa kartoizkoak, bere hatz luze sotilez moldatuak, eta margolanen bideoak. Xabier Olarra

Behatu ez ezik, **esperimentatu** ere egiten zuen, eta horretarako bere lagun handiaz baliatzen zen, Jean-Claude Briallyk egiten zuen pertsonaiaz: Briallyk Auroraren iradokizunei men egiten zien, eta, **esperimentatzen** ari baitzen bera ere, Beatrice Romand nerabearekin zituen harremanen berri ematen zion. Iñaki Iñurrieta

Asko **esperimentatzen** al da euskal literaturan? Ana Urkiza

Hizkuntzarekin jolastea gustatzen zaio eta asko **esperimentatu** du. Ana Urkiza

Horra hor Galileo, bere harriarekin **esperimentatzeko** asmotan...! Joan Mari Irigoien

Erresuma Batuko Cambridgeko Unibertsitateak tximuekin **esperimentatzeko** laborategi bat egin nahi zuen. Berria - Gaiak

Lan horiek idazteko ikerketetan laguntzearren, hain zuzen, drogekin **esperimentatu** zuen, eta horren ondorioz izandako eldarnioek arrastoa utzi zuten zenbait pasartetan, hala nola, karramarroen eta antzeko piztien aipamena *Goragalean*. Monika Etxebarria

Gazteek **esperimentatuz** hazi behar dute, baina horretarako guneak sortzeko ahalmen handirik ez dugu. Berria - Euskal Herria

Esperimentatzea maite zuen: postkubismora joko zizun, inpresionismora halako batean, abstraktura ondoren, beste batzuetan kubismora... Berria - Kultura

2 adierazten denaren esperientzia izan; arima egoera edo sentimen bat sumatu edo hauteman.

Gordailu honetatik irteten dira gauzen antzekotasunak eta aldi berean elkarren hain ezberdinak, batzuetan **esperimentatuak**, bestetan esperientzien poderioz sinetsiak. Imanol Unzurrunzaga

Gogoeta horiek lehenengo zibilizazio aurreratuetako herriei aplika zekizkiekeen, hogeigarren mendeko gerragintza zuzen-zuzenean **esperimentatu** zutenei. Iñaki Mendiguren

Bizitza benetakoa: maldan behera joan, infernuetako heriotza **esperimentatu**, eta maldan gora "gogoeta eroak" sortzen dituena. Joseba Zulaika

3 (era burutua izenondo gisa)

Irakasle **esperimentatua** baina zorrotza zen hura eta hitz ez oso atseginak ibiltzen zituen mihi puntan baldarrak zigortzeko. Izan ere, amodio erreprimituak askoz hobeki argitzen baitu amodioaren fenomenoa, amodio **esperimentatuak** baino. Bego Montorio

Bertso eskolek badute bertsotan egiten irakasteko metodologia aski **esperimentatu** bat. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
esperimentatu du (3); **esperimentatu zuen** (6); **esperimentatzen ari** (3); **eta esperimentatu** (3)

---

esperimentatzaile **1** *izond* esperimentatzen duena.

Alfred Hitchcock, Brian de Palma eta Andy Warholen filmeen alderdi **esperimentatzailea** nabarmenduko dute Parisko Pompidou zentroarekin elkarlanean eginiko zikloan. Berria - Kultura

2 *iz* esperimentatzen duen pertsona.

Hemen ez da izan aranismorik, hizkuntza ez da izan garbitasunaren sinbolo helgaitza, are gutxiago **esperimentatzaileen** tresna iluna. Janbattitt Dirassar

Zergatik ez zegoen **esperimentatzailerik** Espainian, esperimentatzeak fruitua eman dezan esperimentatzen jardutea besterik behar ez bada? Josu Zabaleta

1957an, Maxwellen froga ospetsutik laurogeita hamar urte pasatxora, Edwin Landek -Land bat-bateko kameraren eta Polaroidaren sortzaile ez ezik, **esperimentatzaile** eta teorizatzaile argia bera- kolorearen pertzepzioaren froga fotografiko are txundigarriagoa eman zuen. Xabier Olarra

---

esperimentatze *iz* esperimentupean ezartzea; esperimentua egitea.

Ondorioz, **esperimentatze** fasean dauden prozedura asko zuzenean sartzen dira kliniketan, aurretik ziurtasun eta eraginkortasun frogak gainditu gaberik, terapia berritzaile izenburupean. Berria - Gaiak

Esaterako, baxu funky horiek txalaparta lagun izate horretan eta Barkamendu bezalako pieza batek duen ezagutza eta **esperimentatze** gogoan. Berria - Kultura

---

esperimentazio *(orobat **esperimentazione** g. er.)* **1** *iz* esperimentatzea.

Jazz eta elektronikaren elementuak uztartuz makina bat **esperimentazio** egin da jada. Berria - Kultura

Esperimentazioa oinarri duten sortzaileen lanak eskainiko ditu 'Erakusleihoa 2004'-k. Berria - Kultura

Marcosek bere kritikoak ere baditu, ezkerraren baitan: pertsonaia egozentriko eta handiustea, **esperimentazioa** gustukoa duen Unibertsitateko irakaslea..., denetik esan zaio. Txema Ramirez de la Piscina

Oraingoz, behintzat, zelula amen bidezko **esperimentazioa** azterketa prozesuan dagoen aukera bat besterik ez da. Berria - Euskal Herria

Gomendagarriak iruditzen zaizkigu, printzipioz, **esperimentazio** horiek guztiak, saioan bideratuko den horren izaera eta baldintzak ongi kontuan hartzen badira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esperimentazioa eta ikerketa «ezinbestekoak» zaizkio antzerkia egiteko. Berria - Kultura

Betiko pinturari ezikusiarena egin zion eta **esperimentazioan** oinarritutako teknikak erabili zituen. Berria - Kultura

Britainia Handiko Hertfordshire unibertsitatean, Lola Cañamero ikertzailearen taldea **esperimentazioan** aurrerapauso bat egiten ari da robotak erabiliz. Berria - Gaiak

Esperimentazioaren bidetik mintzo berriak eta irudi freskoak arriskatuz, espazioa, mugimendua, irudia eta hitzaren arteko konbinazio efektiboak lortu dira. Herria

Zeren eta Galileo, **esperimentazionearen** aldekoa zen arren, ez zen Descartes bezainbat. Joan Mari Irigoien

Zein da **esperimentazioaren** karakterizazio funtzionala? Askoren artean

Ingeniaritza genetikoari zor zaio hori, hark eman baitzion sarbide ordura arte **esperimentazioaren** irismenetik kanpo zegoenari: organismo gorenen geneak. Juan Garzia

Rockaren eta abangoardiaren irakaspenak bere egiten jarraitzen du taldeak, **esperimentazioari** uko egin gabe. Berria - Kultura

Esperimentazioari esker, ordea, mugak jar dakizkioke irudimenari. Juan Garzia

Belaunaldiz belaunaldi iritsi zaizkigun atsotitzetatik hasi eta egungo olerkari abangoardistenen **esperimentazioekin** buka. baldintza legalak ere biltzen ditu, jakitearen praktikarako eta **esperimentaziorako** eskubidea ematen dutenak -hori bai, beti ere muga batzuen barruan-. Iñaki Arranz

Argazkigintzan, arkitekturan bezalaxe, abangoardiarako eta **esperimentaziorako** joera erakutsi zuen. Berria - Kultura

Gure irakurle-kopuru urria zabaltzeko ahaleginean ia ahaztuta geneukan **esperimentaziorako**, abangoardismorako, literatur jolaserako ohitura berreskuratzen digu Elorriagak. Unai Elorriaga

Musikaren alorrean, nazioarteko artisten 10 proposamen elektroniko industrial eta **esperimentaziozko** aurkeztuko dituzte. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Kathakali antzerki-dantza, antzerki biomekanika, **esperimentazio** musikala, antzerki antropologia eta laborategia eta labirintoa ikerketagai dituztela, mintegi bana eskainiko dute. Berria - Kultura

Inprobisazioari eta **esperimentazio** askeari modu estuan atxikitako abentura paregabe bat. Berria - Kultura

Esperimentazio abstrakturik soilenetik hurbil zeuden artisten artean. Josu Zabaleta

Horretaz gain, nobela historikoak, **esperimentazio** estilistikoa egiteko aukera ere ematen dit. Berria - Kultura

Esperimentazio intelektualerako gaitasuna ukatzen dio Ongek ahozko mintzabideari. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esan denez, ekonomian **esperimentazio** kontrolatua ez da posible, eta, horren ondorioz, askotan sortzen da gezurkeria mota hau. Iñaki Heras

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Reeden karismak eta talentuak eta Caleren **esperimentazio** nahiak bat egin zuten. Berria - Kultura

Hau duela bi egun lortu zutela gaineratu zuen, eta uranioa aberasteko prozesua «oraindik **esperimentazio** fasean» dagoela. Berria - Mundua

Esperimentazio aldian dago txertoa, baina orain arte emaitza onak izan dituela esan dute adituek; immunitate sistema gogortzen du. Berria - Gaiak

Aretoa aspaldikoa bada ere, berritu ondoren arte eta **esperimentazio** zinemako areto bilakatua da joan den ekainetik.Zentzu nabarmen batean, **esperimentazio**-jarduerak ematen ditu proposatzen diren aieruen onarpenaren edo baztertzearen aldeko frogak. Berria - Kultura

Klinika pribatu hura erosi zuen eta handik aurrera huraxe izan zuen denborapasa nagusia, **esperimentazio** klinika bat martxan jartzea. Joxemari Iturralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
esperimentazio aldian (7); **esperimentazio aldian dagoen** (4); **esperimentazio fasean** (4); **esperimentazio musikala** (4); **esperimentazioa eta** (5); **esperimentazioaren bidetik** (5); **esperimentazioaren eta** (3); **eta esperimentazio** (4); **eta esperimentazioa** (6); **eta esperimentazioaren** (4); **eta esperimentaziorako** (5)

---

esperimentu *(orobat **esperimento** g.er.)* **1** *iz* zerbait aztertzeko eragiten den saioa edo gertakaria.

Espainia modernoaren **esperimentuak** Hego Euskal Herria birrindurik utzi du. Joxe Azurmendi

-Bizitzaren **esperimentua** interesatzen zaidak. Fernando Morillo

Margolanei dagokienez, urtebetez edo gehiagoz **esperimentutan** eta zalantzan ibili ondoren, aldi kementsu eta emankor bati eman zion hasiera I. jaunak. Xabier Olarra

Kontu-kontaketekin eta serieko irudiekin egindako **esperimentuek** konbentzitu zuten Frederik Bartlett, 1920 eta 1930etan, "oroimena" deitzen diogun zer hori ez dela ezer, "oroitze" prozesu dinamikoak baizik ez direla existitzen. Xabier Olarra

Esperimentuei buruzko txostena aurkeztu ondoren, dirulaguntza guztiak murriztu zizkion taldeari europar gobernuak, eta denboraren makina ez zen inoiz errealitate bihurtu. Iban Zaldua

Ankerkeria nabarmeneko aro bat izan zen, bai animaliekin egiten ziren **esperimentuen** arloan, bai abeltegi eta hiltegienean ere. Xabier Olarra

Laborategietako **esperimentuen** protokoloak. Xabier Arregi

Giza eriarengandik inokulazioz animaliei transmititzerik ba ote dagoen ez dakigu, **esperimentuz** frogatu gabe dagoen kontua baita. Xabier Olarra

Erantzun zehazgabeak ematen nizkion (asmo zahar bat hartu dudala berriro, gauza arraro bat dela, gogoeta antzeko batzuk, **esperimentu** moduko bat). Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondoekin)

Diagnostikorako elementu batzuk eskaintzen ditu, bilakaeraren adierazle batzuk, osatzearen irizpide batzuk, **esperimentu** terapeutikoak baimenduz. Xabier Arregi

Newtonek, prismaren **esperimentu** ospetsuan, 1666an, erakutsi zuen elkarturiko kolorez osatzen dela argi zuria. Xabier Olarra

Esperimentu sionistaren ondorio bat Azterlan honetan lehenago planteaturiko puntu bat frogatzea izan zen. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan)

Zurra-bainuaren lagin bat lortu, **esperimentu**-laboratoriora joan, eta aproba egin nuen 1: 10.000 soluzio bat atomizatzen erradiografia-xaflaren lagin bat agerian zegoen kamera beltzean. Juan Garzia

Unibertsitateko **esperimentu**-abeltegira joan ginen. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste esperimentu (7); **diren esperimentu** (3); **diren esperimentuak** (4); **diren esperimentuek** (4); **diren esperimentuetan** (3); **du esperimentu** (3); **egin diren esperimentuek** (3); **egindako esperimentu** (6); **egindako esperimentuek** (5); **egindako esperimentuetan** (6); **egindako esperimentuetatik** (3); **egiten diren esperimentuak** (4); **esperimentu abstraktuak** (3); **esperimentu abstraktuak eta** (3); **esperimentu asko** (4); **esperimentu bat** (14); **esperimentu batean** (6); **esperimentu baten** (4); **esperimentu batzuetan** (3); **esperimentu bidezko** (3); **esperimentu egin** (4); **esperimentu egingo** (3); **esperimentu guztiak** (4); **esperimentu haren** (3); **esperimentu honek** (5); **esperimentu horiek** (5); **esperimentu kliniko** (4); **esperimentua eta** (3); **esperimentuak egin** (12); **esperimentuak egin ahal** (3); **esperimentuak egin nahi** (3); **esperimentuak egiteko** (14); **esperimentuak egiten** (5); **esperimentuak egitera** (3); **esperimentuak ez** (3); **eta esperimentu** (9); **eta esperimentua** (3); **eta esperimentuak** (4); **hainbat esperimentu** (7); **hainbat esperimentu egin** (3); **hainbat esperimentu egingo** (3); **horrelako esperimentuak** (3); **lehendabiziko esperimentu** (3); **lehendabiziko esperimentu abstraktuak** (3)

---

esperimentugile *iz* esperimentuak egiten dituen pertsona.

Esperimentugile batzuek zentzu horretan emaitzak lortu izana aldarrikatu badute ere, teoriak ez du onarpen zabalik lortu. Irene Aldasoro

Esperimentugileen harrigarri, zera erakutsi zuen esperimentuak: oxigeno kantitate bera baliatzen zutela animaliek bi oinen gainean eta lau oinen gainean lasterka egiteko. Irene Aldasoro

Uretara burdin hautsa bota eta otarrainak pixka batean ur horretan utziz gero, otolitoak mugitu ahal izango zaizkie otarrainoi kanpotik iman baten bidez; **esperimentugile** burutsuari aukera handiak ematen dizkion teknika da hori. Irene Aldasoro

---

esperma **1** *iz* animalia arrek sexu harremanetan jaurtitzen duten ernal gaia, espermatozoideak dauzkana.

Testikuluen eta guruin lagungarrien jariakinez eratutako likidoa da **esperma**, espermatozoideak garraiatzeko funtzioa duena. Berria - Gaiak

Niretzat, ez dago sexurik **esperma** isuri gabe, gizon batekin ari bazara, kondoiak sustraitik irentzen du plazerra, **esperma** ez botatzea krudela baino krudelagoa da emakumearentzat. Karlos Zabala

Ugalketa eta sexualitatea bereiztea, jaiotzak kontrolatzea, **esperma** izoztuz emakumeak "artifizialki" ernaltzea. Juan Garzia

Tabakoak **esperma** hiltzen duela erantzun zion. Berria - Kultura

Mutila hustu zenean, **espermaren** zaporea berak uste baino gozoagoa zela konprobatu zuen. Jasone Osoro

Espermaren azterketa genetiko bat egiteak antzutasuna tratatzeko bide berriak sortzeko aukera eskain dezake. Berria - Gaiak

Ematen du humanitatea lo dagoela, neu bakarrik nagoela itzarrik goizalde sekretu honetan, itzarrik eta inoren lekuan, eroen ilargi **espermazkoari** begira eta kilkerren letania logabea entzuten gau luzean zehar. Joseba Sarrionandia

Espermatozoide bat arrautza baten zitoplasman injektatzea. Ramon Saizarbitoria

Animalia gorenetan, eta orobat gizakietan, sorkuntzaren unetik dago bizirik organismo berria, hau da, obulua eta **esperma** batzen direnetik. Irene Aldasoro

2 (izenondoekin)

Handik segundu batzuetara Mikel ere busti egin zen eta nik eskuan jaso nion **esperma** hezea. Aitor Arana

Yerling lurrina emanik izerditan zegoen emakume baten usaina aditu nuen berehala, egun jendetsuetan ohi ziren lurrin, olio-masaje eta **esperma** hotzaren usainekin batean. Joxan Elosegi

Ez zait haziaren zaporea gustatzen: alkandora kendu eta titiak miazkatu nizkion, **esperma** likatsua bere titiburuen inguruan zabalduz. Harkaitz Cano

Ez zekiat ba zergatik, gero eta **esperma** mikatzagoa daukak! Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Menhiren eguna urratzeraino egon ginen, etzanik, izerdi, ke, tu eta beharbada **esperma** ttanttek tepotzen zuten inguru giro jendetsuan. Itxaro Borda

Ezerk ez zuen eragozten nire sexua laxatu eta ireki zedin, ezta nire sabelean **esperma**-zorrotada ezezagun bat zirkinik egin gabe onartuko zuen enbrioi bat jadanik egoteak ere. Joseba Urteaga

Berehala sentitu ditut **esperma**-olatuak latexezko moilen kontra alferrik hausten. Patxi Iturritegi

Heziketa sexuala ez da obuluei, **esperma** hodiei, umetokiari, hormonei edo kode genetikoei buruz hitz egitea. Luis Elberdin

Burua galdu ondoren ere, arrak larrutan jarraitzen du, eta badirudi emearen portaera basatiak erraztu egiten duela arraren **esperma** isurketa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mutila hustu zenean, **espermaren** zaporea berak uste baino gozoagoa zela konprobatu zuen. Jasone Osoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lurrinetan, garbigarrietan, moketetan, gailu elektronikoetan eta arropan dauden gai kimikoek giza **espermari** egiten dioten kaltearen inguruko ikerketa aurkeztu zuen atzo Greenpeace erakunde ekologistak. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta esperma (8)

---

espermatozoide *iz* arraren sexu zelula, obulua ernaltzeko gaitasuna duena.

Pilulak trabatu egiten du ernalketa, bai **espermatozoideen** lana zailagoa eginez, bai ernalketa prozesua eraldatuz. Luis Elberdin

Pilulak trabatu egiten du ernalketa, bai **espermatozoideen** lana zailagoa eginez, bai ernalketa prozesua eraldatuz. Luis Elberdin

Emakumea haurdun gelditzeko aukera gehiago egon zedin, obuluan txertatu zuten zuzenean **espermatozoide** bat. Berria - Gaiak

Obulua eta **espermatozoidea** elkarturik sortzen den zelula batetik garatzen dira gainerako guztiak. Pello Salaburu

Espermatozoidea obuluan sartutakoan, geruza fin-fin bat sortzen zaio obulu ernalduari. Hasier Etxeberria

Obuluek eta **espermatozoideek** babestu egin nahi dute urak daukan gatzetik, segundo apur batzuk bakarrik egin baititzakete gatz kontzentrazio horretan erre eta suntsitu gabe. Hasier Etxeberria

Saguekin, ikasia genuen **espermatozoideak** eta obuluak bildu eta nahasten, saio-hodi bat baliatuz, biak bat egiteko; hala eraturiko enbrioiak sagu inude batzuen baitan txertatzen. Juan Garzia

Semena, edo hazia **espermatozoidez** eta prostatan eta semen besikulan sortzen diren likidoez osatua dago. Luis Elberdin

Basektomia eginez gero, baina, semenean ez da **espermatozoiderik** egoten. Luis Elberdin

Espermatozoideak semenera iristea galarazten dugu basektomia eginda. Luis Elberdin

Hazia laborategian tratatzen da: zenbat **espermatozoide** mugikor dauden ikusten da. Berria - Harian

Zelula horiek 23 kromosomako **espermatozoide** bihurtzen dira gero. Berria - Gaiak

Osakidetzako ospitale guztietatik, ordea, bakarrean eskaintzen dira (Barakaldoko Gurutzetako ospitalean) intseminazio artifizala, *in vitro* ernalketa eta **espermatozoide** -injekzio intrazitoplasmatikoa (ICSI) teknikak. Berria - Harian

---

espermatozoo *iz* espermatozoidea.

Lokatz ez ezik, ernaminez beteriko ustelkeria ere bai, baselina bezain limuri, eta putzuek egunsentiko argipean odol zikinezkoak dirudite, hileko-odoldunak, arrabioz beteriko istilak, buztan dardartizko burubeltzez irakiten, **espermatozoozko** borbortegiak balira bezala, hots, gauza izugarria... nazkagarria benetan Joxe Austin Arrieta

---

espermizida *izond* 1 espermatozoideak desegiten dituena.

Segurtasuna handiagoa izan dadin, komeni da krema **espermizida** dutenak erabiltzea. Luis Elberdin

Antisorgailu bezala baginaren hondoan ipini behar nuen diafragma bat eta gel **espermizidaz** betetako botilatxo pare bat eman zizkidan. Joseba Urteaga

Pozez eta etsipenez betetako sasoia izan zen, kontrazeptibo lez cocacola erabiltzen genuen, azido karbonikoa **espermizida** zelakoan, baina cocacolak peritonitis eta gas enbolismo larriak eragiten zituen. Joseba Sarrionandia

2 (izen gisa)

Kontrazepzio metodoak -kondoia, **espermizida**, pilula, DIUa, basektomia- koitoa egin baino lehen edo koitoa egin bitartean erabiltzen dira. Luis Elberdin

---

espero 1 *iz* zain egotea.

Berdin da, bihar goizean ahaztuko zaitut, eta trago luze bat edango dut, zu ailegatu arteko **esperoa** bezain luzea. Joxemari Iturralde

"Parisen nago" esaten zidan, edo Londresen edo urrutiago, distantziaren eta denboraren urruntasunak **esperoaren** plazerra areagotzen baitu. Ramon Saizarbitoria

Loarekin **esperoaren** denbora murrizteko asmoz. Ramon Saizarbitoria

Aitaren begirada **esperoaren** poderioz ohikoa baino larriagoaren aurrean, egia esatea beste erremediorik ez nuen izan; besteak beste, gin-tonik haiek gezurrik asmatzeko ganorarik gabe utzi nindutelako. Ramon Saizarbitoria

Gizon zuhurrak ez dit eskatuko eta ez du horren **esperorik** ukanen halako gai bati buruz mintzatzean bera azkeneraino ahitzea, edo honelako edo halako alegoria azaltzen hastean, hari buruz esan den guztia agortzea. Xabier Kintana

Huts egindako misio batetik zer **esperorik** ez nuen. Josu Zabaleta

2 *espero izan, esperoko* da *ad* zerbaiten enperantza izan.

Nekez **espero zitekeen** estatu konkistatuek hura atsegin izatea, Tsin She Huang-ti estatu unibertsalen ezarpenen historietan ezagun den figuraren -marka-gizon konkistatzailearen- ordezkari baitzenBegirunea **espero izateak** ere gogotxartzen ninduen, bestalde. Iñaki Mendiguren

Hasieran, gizon libre haiek ez zeukaten feudo bat **espero izaterik**, baina gerora bai. Iñaki Iñurrieta

Segurtasun-sistema egokiaz hornituta badago ere, hilabeteetan egon da hutsik etxea: luzaroegi, inor ez sartzea **espero izateko**. Oskar Arana

Hamabost urte banitu, ulertuko luketela nire burugabekeria, baina adin honetan, gaixotzen banaiz, ez **espero izateko** beraien laguntzarik, bakardadean itoko naizela; txikiei hori erakutsi nahi al diedan. Arantxa Iturbe

Ilusioa aiseago gertatzen da, oro har, **espero izateko** moduko egoeran jartzen denean. Josu Zabaleta

Jadanik esan zitekeen hinduen gobernugintza atzerritar adiskideek, batasun politikoa ahalik eta gehien salbatzeko ahaleginetan, **espero izatera** ausartutakoa baino arrakastatsuagoa izan zela. Iñaki Mendiguren

Espero izatekoa zen sistema horrek arrosa koloreko irudi argi orokor bat ematea, baina "ezinezko" zerbait gertatu zen. Xabier Olarra

Irakasle Laguntzaileak harriturik begiratu zidan; **espero izatekoa** zen jardun luzearen ordez, Ebanjelioko hitz biz erantzun zidan: [...]. Juan Garzia

Espero izatekoa zen mundu helenikoaren eta siriakoaren artean ordu arte mugikor izandako ekialdeko eta mendebaldeko mugak akemenestar eta kartagoar inperiogileek marrazturiko lerroen arabera ezarrita geratuko zirela. Iñaki Mendiguren

Ikara ematen zion, beste behin adierazi zuenez, norbaitek zera **"espero izate"ak**, kasurako: autoa gidatzeko eta "ikustun"entzako lan erabat berrian hasteko gai izango zela bera. Xabier Olarra

Eleanorrek zuzenean aireportutik eztei palioaren azpira eramango duela **esperoko** du seguruenik. Koro Navarro

Behin bazkaldu badu, ez du bi aldiz bazkaltzea **esperoko**. Antton Olano

Zuk ere ez zenuen holakorik **esperoko**. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan ere, **esperoko** zuen agian oraindik ere pastel eta edari haien nolabaiteko ordaina. Koro Navarro

Gizajoa! Ez zuen inolaz ere horrelako despedida makurrik **esperoko**. Patxi Iturritegi

Ez behin ere idatzi, ez etorri, eta hala ere utzi bezala **esperoko** zuten gauzak aurkitzea, ai ene! Anton Garikano

Sevillakoek joko gogorra eta zikina **esperoko** zuten, baina Osasunak ondo jokatuta, garbi irabazi zien. Berria - Kirola

Zortzi urterekin aita mekanikariaren babesean etxeko moto zaharrean hasi zen hark, ez zuen horrelakorik asko **esperoko**. Berria - Kirola

Nik gauza guztiak lurrean sakabanatuta eta zanpatuta aurkitzea **esperoko** nuke. Koro Navarro

Hura ez zen batek **esperoko** zukeen ahotsa. Koro Navarro

Jean-Marie Straub-en eta Danièle Huillet-en filmetan, esate baterako (deskoadratzea maiz erabiltzen den film batzuk aipatzearren), pertsonaiaren eta lekuaren artean erlazio bat ezartzeko erabiltzen da baliabide hori, eta pertsonaiaren eta beste pertsonaia batzuen arteko erlazio tradizionalagoa, **espero izatekoagoa** "eteteko". Josu Zabaleta

3 *esperoan adlag* zain.

Azkena begitik galdu arte egon nintzen **esperoan**. Aingeru Epaltza

- **Esperoan** gelditzen ahal naiz? -galdetu nuen. Fernando Rey

Hara hor kaoba enbor sendoak **esperoan**, zerraren alboan zerrakina pilatzen den artean. Joseba Sarrionandia

-Zeren **esperoan** haiz lumatzen hasteko? -irri egin zion nire bizar ezari. Aingeru Epaltza

Zintzo egon **esperoan** mozkorra pasatu arte. Fernando Rey

-Zeren **esperoan** gaude? Aingeru Epaltza

Trenaren **esperoan**, espaloian, sekulako jendeketa. Fernando Rey

Han, **esperoan** diraute, betiereko sura kondenatuek bezala. Aingeru Epaltza

Trip honetan guztira hamabost bat ordu galduko ditugu **esperoan**, kasik egun oso bat. Patxi Zubizarreta

Bi aste egin nituen zigor-espedientearen jakinarazpenaren **esperoan**. Aingeru Epaltza

Elgetako dorreak lau kanpai hots jo zituenean bakarrik zegoen beraz, Loxetako zelaia zaintzen, Miren noiz azalduko **esperoan**. Ramon Saizarbitoria

Hamazazpi ordu **esperoan** ! Karlos Zabala

Gainera lur askatuetan Musolino bide-lapurra zegoen, **esperoan** , eta honela esan zion Viktor Manuel erregeari: baina zer dela-eta heldu zarete hona sudurrak moztera? Fernando Rey

4 *esperotako* *izlag*

Hainbeste **esperotako** unea atzo eguerdian iritsi zen, UCIk Kelmek aurkeztutako banku abalak onartu ondoren. Berria - Kirola

Ez zuen Gorka Britek **esperotako** itzulera gozorik izan igandean, Eibarren. Berria - Kirola

Oposizioaren saiatzeek, haatik, ez zuten **esperotako** fruiturik eman. Berria - Mundua

Sinaduran erreparatu eta **esperotakoa** : "Erredakzioa". Iñigo Aranbarri

Aline neska gazte frantziarra Bartzelonako ahaide batzuengana bidaliko dute, eta, lehengusuek hasieran gaizki hartuko badute ere, ondorioak ez dira izango beraiek **esperotakoak** . Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

ahal izatea espero (21); **aldaketarik espero** (12); **aldatzea espero** (14); **amaitzea espero** (22); **amaitzea espero dute** (8); **argitzea espero** (10); **aritzea espero** (14); **asko espero** (15); **ateratzea espero** (11); **aurkitzea espero** (24); **baina espero** (39); **baina espero dut** (18); **baino gehiago espero** (12); **bat espero** (70); **bat espero nuen** (11); **bat espero zuen** (10); **berak espero** (20); **besterik espero** (26); **betetzea espero** (13); **biltzea espero** (33); **biltzea espero dute** (18); **bukatzea espero** (9); **da espero** (51); **dela espero** (68); **dela espero du** (15); **dela espero dugu** (8); **dela espero dute** (16); **dira espero** (11); **direla espero** (25); **dituela espero** (17); **dituela espero du** (9); **dituztela espero** (9); **du espero** (40); **duela espero** (48); **duela espero du** (16); **duela espero dute** (9); **dugu espero** (8); **dugula espero** (8); **dut espero** (17); **dute espero** (14); **dutela espero** (28); **edo espero** (9); **edozer espero** (8); **egingo zuela espero** (8); **egitea espero** (93); **egitea espero da** (13); **egitea espero du** (12); **egitea espero duela** (9); **egitea espero dugu** (12); **egitea espero dute** (19); **egotea espero** (84); **egotea espero du** (23); **egotea espero duela** (8); **egotea espero dut** (15); **egotea espero dute** (12); **ematea espero** (32); **erantzuna espero** (8); **erantzunik espero** (10); **ere espero** (75); **ere espero ez** (23); **esan zuen espero** (14); **esatea espero** (10); **eskuratzea espero** (11

espero al (37); **espero al zenuen** (19); **espero baino** (159); **espero baino askoz** (11); **espero baino gehiago** (14); **espero baino hobeto** (9); **espero baino lan** (8); **espero baitu** (8); **espero baitzuen** (10); **espero baitzuten** (11); **espero balu** (9); **espero balu bezala** (8); **espero behar** (26); **espero bezain** (19); **espero bezala** (97); **espero da** (269); **espero daiteke** (30); **espero daitekeen** (9); **espero den** (23); **espero dezagun** (66); **espero diat** (32); **espero dinat** (11); **espero dira** (27); **espero ditu** (23); **espero dituzte** (57); **espero du** (533); **espero du aurten** (9); **espero du eta** (8); **espero dudan** (11); **espero duela** (193); **espero duela adierazi** (26); **espero duela esan** (47); **espero duela gaineratu** (15); **espero duen** (36); **espero duena** (11); **espero dugu** (307); **espero dugun** (9); **espero dut** (683); **espero dut ez** (17); **espero dute** (420); **espero dute antolatzaileek** (24); **espero dutela** (39); **espero duten** (24); **espero duzu** (70); **espero duzue** (27); **espero eta** (23); **espero ez** (257); **espero ez den** (9); **espero ez nuen** (24); **espero ez zen** (10); **espero ez zuen** (44); **espero ez zuena** (14); **espero ez zuenean** (10); **espero ez zuten** (9); **espero gabe** (13); **espero gabeko** (12); **espero genuen** (69); **espero genuena** (15); **espero hain** (10); **espero halako** (10); **espero izan** (37); **espero izatea** (10); **espero izateko** (11); **espero izatekoa** (50); **espero izatekoa da** (10); **espero izatekoa zen** (22); **espero izatekoa zenez** (8); **espero nezakeen** (10); **espero nuela** (11); **espero nuelako** (9); **espero nuen** (165); **espero nuena** (23); **espero nuenean** (10); **espero ote** (8); **espero zen** (166); **espero zen bezala** (25); **espero zen neurria** (9); **espero zena** (29); **espero zenuen** (28); **espero zenuten** (15); **espero zezakeen** (13); **espero ziren** (8); **espero zitekeen** (71); **espero zitekeen bezala** (11); **espero zitekeena** (9); **espero zituen** (16); **espero zituzten** (26); **espero zuela** (59); **espero zuela esan** (9); **espero zuen** (258); **espero zuena** (30); **espero zuenean** (9); **espero zutela** (27); **espero zuten** (133); **espero zutena** (24); **espero zutena baino** (9)

eta espero (169); **eta espero baino** (8); **eta espero dezagun** (10); **eta espero du** (10); **eta espero dugu** (22); **eta espero dut** (56); **eta espero ez** (9); **eta espero zen** (8); **eta gutxien espero** (9); **etortzea espero** (10); **ez da espero** (33); **ez dira espero** (9); **ez du espero** (31); **ez dugu espero** (8); **ez dut espero** (14); **ez dute espero** (14); **ez egotea espero** (10); **ez espero** (16); **ez genuen espero** (22); **ez izatea espero** (32); **ez nuen espero** (83); **ez zen espero** (14); **ez zuela espero** (22); **ez zuen espero** (71); **ez zutela espero** (9); **ez zuten espero** (12); **ezer espero** (27); **ezin espero** (13); **gainditzea espero** (9); **gehiago espero** (59); **gehiago espero dituzte** (8); **genuen espero** (22); **gertatzea espero** (20); **gobernuak espero** (13); **gogorra espero** (15); **gogorra espero da** (11); **guk espero** (9); **gutxi espero** (14); **gutxiago espero** (13); **gutxien espero** (69); **gutxien espero nuenean** (10); **gutxik espero** (37); **gutxik espero zuen** (20); **hala espero** (63); **hala espero dugu** (8); **hala espero dut** (37); **halakorik espero** (38); **handia espero** (11); **handiagoa espero** (8); **handirik espero** (19); **hartzea espero** (32); **hastea espero** (21); **hobetzea espero** (16); **hori espero** (23); **horrelakorik espero** (35); **igoera espero** (8); **igotzea espero** (11); **ikustea espero** (30); **inguru espero** (11); **inola ere espero** (13); **inondik ere espero** (8); **inor gutxik espero** (20); **inork espero** (56); **inork espero ez** (46); **inork gutxik espero** (8); **irabaztea espero** (23); **iristea espero** (18); **izango dela espero** (18); **izango zela espero** (9); **izatea espero** (354); **izatea espero da** (32); **izatea espero du** (60); **izatea espero duela** (27); **izatea espero dugu** (34); **izatea espero dut** (68); **izatea espero dute** (58); **izatea espero zuen** (16); **jarraitzea espero** (16); **jarraitzea espero dut** (8); **jartzea espero** (18); **jasotzea espero** (34); **jasotzea espero du** (10); **joatea espero** (20); **jokatzea espero** (20); **konpontzea espero** (11); **lagun espero** (10); **lortzea espero** (64); **lortzea espero du** (25); **lortzea espero dute** (12); **nik espero** (36); **nik espero nuen** (9); **nolako partida espero** (8); **nuen espero** (85); **nuen horrelakorik espero** (8); **ona espero** (8); **ona izatea espero** (9); **onartzea espero** (19); **onik espero** (8); **osatzea espero** (10); **parte hartzea espero** (12); **partida espero** (13); **partida espero duzu** (9); **prest egotea espero** (13); **sartzea espero** (8); **uztea espero** (11); **zabaltzea espero** (9); **zela espero** (24); **zen espero** (20); **zer espero** (123); **zer espero daiteke** (15); **zer espero duzu** (18); **zer espero duzue** (8); **zer espero zenuen** (9); **zerbait espero** (14); **zirela espero** (9); **zuela espero** (44); **zuen espero** (96); **zuen espero duela** (16); **zuen horrelakorik espero** (9); **zutela espero** (13); **zuten espero** (12)

baten esperoan (21); **esperoan egon** (23); **esperoan gelditu** (8); **esperoan nengoen** (8); **esperoan zegoen** (8); **haren esperoan** (9); **nire esperoan** (10); **zerbaiten esperoan** (9)

---

esperoezin *iz* ezin espero dena.

Bera zen dudarik gabe neskatoaren nekeen erudunetako bat, haren portaera guztiz **esperoezina** izan zen berarekiko. Joxemari Iturralde

Baina guztiz **esperoezinena** azken eszena hura izan zen, komentura iritsitakoan, azkenik gaindituriko zalantza une baten ondoren, zera esan zionean, Bilbora iritsi ondoren deitu egingo ziola nola zegoen jakiteko. Joxemari Iturralde

---

esperogabe *izond* espero ez dena.

Modu horretan, produktu manufakturatuen tokiko merkatuetan sorturiko urrialdiek inbertsio-aukera **esperogabeak** ekarri zizkieten bertako enpresaburuei, produktu nazionalekin ordezka baitzitzaketen ordu arte inportatu egiten ziren ondasunik arruntenak. Koro Navarro

Mantentzen den bitartean, eutsiko diote, baina edozer gertatuz gero -gaixotasun bat, langabezia, **esperogabeko** gastu bat-, ezin diote aurre egin zorrari eta orduan bahiturak datoz. Berria - Ekonomia

---

esperpentiko *izond* itxuragabea, isekagarria.

Pertsonaiak irrealak eta **esperpentikoak** dira. Berria - Kultura

Telebistan Jose Luis Moreno nazkagarriaren saio **esperpentikoa** zegoen eta hari begira geratu nintzen, senarraren purrustadei kasurik egin gabe. Jasone Osoro

«Esperpentikotzat » jo zuen Carod-Rovirari bileraren xehetasunen berri eskatzea «jakina delako dagoeneko Ministerioak badauzkala». Berria - Euskal Herria

Irudi hark Espainiako ikuspuntu **«esperpentikoena** » ekartzen dio gogora EAko sailburuari. Berria - Euskal Herria

---

esperpento *iz* errealitate desitxuratu eta irrigarria aurkezten duen literatura generoa; zentzugabekeria, irrigarrikeria.

Max, **esperpentoaren** sortzailea, arau klasikoak ispilu konkaboaren matematikarekin eraldatu nahi dituen poeta handiak laster esango digu betiko: Gabon! Alabaina, oraindik Ministroarekin, Rubén Daríorekin, La Lunaresekin mintzatu behar du. Pablo Sastre

Epaiketarekin sortu den **«esperpentoa** » anekdota hutsean ezin dela utzi diote taldekideek. Berria - Euskal Herria

18/98 **esperpentoaren** tolesetan ageri dira esandakoaren zantzuak. Berria - Euskal Herria

Aupa **esperpentoa** , biba *kitsch*-a! Xabier Mendiguren Elizegi

Gogolek errealitatea itxuragabetzen du etengabe, hiperboleen bidez, gorabehera xeheei eta denetariko bitxikeriei berebiziko pisua emanez, zeharo zentzugabeak diruditen deskribapenak eginez, errealitatea **esperpentoraino** eramanez. Jose Morales

Future / No Future zen ale haren izena, eta zientzi fikzioa gaia; hala ere, nire lan honek ez zuen futurista izateko inongo asmorik: ikuskizun komiko bat eskaini nahi zuen soilik, **esperpento** sozial bat. Xabier Mendiguren Elizegi

---

espert *iz ipar* aditua.

Autobide, errebide, burdinbide eta horietaz, **espertek** nun nolako behar-ordu handienak diren beharra zuten aztertu. Herria

Ikerketa egin dutenek -hogoi bat lagun omen eta denak **espertak** - garbiki diote ainitz sailetan laneko denbora sobera mugatua dela, 35 oren eta gaineratiko. Herria

Asurantzak edo asurantzetako **espertak** pasatu dira ere, lehen estimu baten egiteko. Herria

Auzitegiko **espertak** ere baieztatzen du legeak finkatutako arrabots neurria errespetatua dela. Herria

Espertak, geometrak eta politikariak etorri ziren laborantza eraginkortzeko auzoen arteko lurren esku-aldaketa sustatzeko eta justifikatzeko. Itxaro Borda

Dupa batzu 3500 metrako barnatasunean izanki eta beste batzu oraino barnaxago, ez da den hoberenetik lan erretxa izanen bainan **espertek** errana dute ez dela ere ezin egina, gisa hartako muntadurekin. Herria

Esperten arabera, hogoi mila tonako harroka muturrak baitu kolpez amor eman, zolatik uhainek jana eta gainetik azken denbora hotako euriteak. Herria

Arrijuria Daniel, 45 urte, kontable-**esperta** -Larramendy Michel, 48 urte, kalitate-**esperta** - Sais-Mailherro Martine, 37 urte, ostatu-langile. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
esperten arabera (4)

---

espertasun *iz* **

-"Groupama" asurantzak, bere esperta eta "Administrazio auzotegi"ko Lavigne jaun adituak egin dute akortean ezkila dorrearen **espertasuna**. Herria

---

espertur *iz* **

Denek behar zuten bitoria osoa, beren izena entzunez **esperturraren** zerrenda luzean, egun hartako arratsalde apalean. Herria

---

espetxe **1** *iz* presoak gordetzeko prestatua dagoen eraikuntza edo lekua; askatasuna kentzeko zigorra.**kartzela; presondegi**.

Espetxea zen berak ezagutu zuen etxea, bere etxea. Gotzon Garate

Harrizko murruek ez dute **espetxea** egiten. Xabier Olarra

Espetxea merezi zenuen, baina hirian gelditzeko baimena eman nizun. hainbat garaitako zigor mota desberdinak dauzkagu indarrean aldi berean: tortura, **espetxea**, isuna... orobat oraintxe bertako berezitasuna: kontrola, alegia. Jose Morales

Mota honetako delitu batek ganorazko zigorra merezi du, **espetxea** ere bai, morrontza ere bai; baina delituaren izaeraren neurriko **espetxea** eta morrontza. Juan Martin Elexpuru

Espetxean sartu zuten, eta orduan senideek atzerrira lanera joana zela esan zuten. Jon Muñoz

Ezerk ez zion galarazten diktadura politiko bati **espetxean** sartzea zientzialariak, "zientzia burges" bat praktikatzen zutela eta. Juan Garzia

Urtebete eta ia hiru hilabete eman zituen Dani Untzitik Iruñeko **espetxean** preso. Edurne Elizondo

Urtebete egin zuen **espetxean**. Askoren artean

Nelson Mandelak hogeita zazpi urte egin dituela **espetxean** bere eskubideak defendatzeagatik. Iñaki Arranz

Bizitza osoa **espetxean** igarotzera zigortu dute. Gotzon Garate

Cartagenako **espetxean** idatzi zuen liburu hau. Pablo Sastre

1985ean Martuteneko **espetxean** emandako kontzertu baten ondoren, Joseba Sarrionandiak eta Iñaki Pikabeak kantariaren bozgorailuetan gordeta ihes egin zuten. Berria - Kultura

Asiako **espetxeetan** dauden adingabeen egoera salatu du Unicefek. Berria - Gaiak

Mikhail Khodorkovski Jukoseko presidentea **espetxean** da iruzur fiskala, zergak ez ordaintzea eta funts publikoak bidegabe erabiltzea leporatuta. Berria - Ekonomia

Espetxeetan esplotazioa areagotu egiten da. Gotzon Garate

Espainiako **espetxeen** zuzendaritza nagusia. Koldo Izagirre

Ordu bete geroago, **espetxeko** ateak ireki eta Murazov zaharra sartu zen. Jose Morales

Rousseau ohorearen eta famaren aldarera jasoko zuten, Sade **espetxeko** horma artean usteldu eta hilko zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Luze azaltzen du bost ekintzaileak eta bi gaizkileak heriotzarako nola prestatzen diren **espetxeko** bakardadean. Jose Morales

Frantzisko preso erori zen beste askorekin batera, eta giltzapeturik **espetxeko** miseriak jasan zituen. Askoren artean

Espetxeko agintariek eta zaintzaileek ere laztanka hartzen dute, ia jaiotzetik koxkortzeraino beraiekin izan baitute. Gotzon Garate

Fresnes-emakumeak **espetxeko** zuzendaria bereziki zorrotza zen segurtasun araudia ezartzen, eta horretara makurrarazten zintuzten. Jokin Urain

Anaxagoras Klazomenekoa, berriz, **espetxera** kondenatu zuten, baina ez geometria lantzeagatik, astronomian aritzeagatik baizik. Jon Muñoz

Espetxera naramate, heriotzara. Jose Morales

Atxilo hartu eta kuartelera eraman zituzten segituan, eta Goriziako **espetxera** bidali zituzten handik. Josu Zabaleta

Espetxera joatea baino latzagoa izan zen. Edurne Elizondo

Turinen positibo ematen duen kirolaria ez da **espetxera** joango. Berria - Kirola

Horrela bada, isilpean **espetxetik** ihes egiteko egitasmoa azaldu zioten Pedrori. Askoren artean

Lagundu behar didazu bezeroa **espetxetik** ateratzen. Migel Angel Mintegi

Gure kupoi hornitzaileak **espetxetik** libre utzi dituzte, eskerrak! Josu Zabaleta

Ez zuen biziki ongi ulertzen zergatik adiskidea hainbeste tematzen zen serora bat **espetxetik** librarazi beharrez. Elena Touyarou

Franco hil zen; hurrengo hilabeteetan, jende ugari irten zen **espetxeetatik**. Juan Kruz Igerabide

Gertatzen dena da hilda agertzen den presoak **espetxearen** krudela salatzen duen bezala salatzen duela lintxatuak justizia jauregia ez ezik beroaren logika bera ere. Iñigo Aranbarri

Aipatzen diren toki horiek beren kontrarioak eta protestak ere badituzte han hemenka bat bestearen ondotik, **"Espetxerik** ez!" diotela manifestariek. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jaipurko **espetxe** nagusian diren emakume askoren istorioak familiaren giro gaiztoari lotuak daude. Gotzon Garate

O'Hare-ko aireportutik etorria zen hegazkinez, eta joandako bi urte eta erdian haren posta-helbidea Joliet-ko **espetxe** federala izana zen. Oskar Arana

Orduan, **espetxe** erraldoia iluntasunean eta isiltasunean murgiltzen zen, horma berdinetan argitxo bat ere ez zegoela, eta isiltasunaren, gelditasunaren eta ilunpeen marrarekin bereizten zen beti borbor zegoen hiri zaratatsutik. Jose Morales

Hogeita hemezortzian, noiz fusilatuko zain nengoela Talavera de la Reinako **espetxe** madarikatuan, kanje batean sartu ninduten. Koldo Izagirre

Bi gizonak eta zakurra udaberria arte geratzen dira elurrezko **espetxe** horretan, begien aurrean Balmhornen malda erraldoi zuria besterik ez dutela. Josu Zabaleta

Betiereko **espetxea** izango da birritan hutsegite berean erortzen denaren zigorra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zorrengatik atxilotu zuten, eta betiko **espetxea** eman zioten, baina Gillermo II.ak birgaitu egin zuen. Juan Martin Elexpuru

Behin-behineko **espetxea** agindu zuen epaileak haien kontra. Edurne Elizondo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Familiak **espetxe** zuzendaritzakoei psikologo baten laguntza eskatu bazien ere, hauek uko egin zieten laguntza eskaera guztiei. Paddy Rekalde

Zaballako egitasmoa aurrera eramateko laguntza guztia emanen dio Espainiako **Espetxe** Erakundeari. Berria - Euskal Herria

Espainiako **Espetxe** zuzendariarekin biltzeko zain daudela nabarmendu zuen Justizia sailburuak. Berria - Euskal Herria

Bisiten orduak, paketeak sartzeko baldintzak, kartzelaren garbitasunari buruzko aipamenak, ordutegiak, eta **espetxe** sindikatuen aldarriak. Lander Garro

Presoentzat, auskalo noiz arte luzatuko ziren **espetxe** egunak. Joseba Sarrionandia

Espetxe eredua aldatu behar dela diote Jaurlaritzak eta Salhaketak. Berria - Euskal Herria

Hamaika urteko **espetxe** zigorra eskatu zuen fiskalak haientzat. Edurne Elizondo

Vincennesko **espetxe**-gotorlekura eramaten dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Uste dut Genetek bizi izan zuen **espetxe** egoera baten giroa dakarrela. Paddy Rekalde

4 irud/hed

Hura ikusi, eta ezin konta ahala ahots hasi zitzaizkidan barrutik irten beharrean, ez eztarrian barna, baizik eta zuzenean bihotzetik, hantxe edukiak bainituen estu-estu ezkutaturik, **espetxe** gogorrean, azpiraturik, haien kantua duintasun apur baten faltan itorik. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arteko espetxe (32); **arteko espetxe zigorra** (16); **arteko espetxe zigorrak** (9); **aurkako espetxe** (5); **auzitegi nazionaleko espetxe** (14); **baina espetxe** (5); **bederatzi hilabeteko espetxe** (4); **bederatzi urteko espetxe** (4); **beste espetxe** (15); **bi espetxe** (7); **bi urteko espetxe** (19); **bitarteko espetxe** (5); **bizi arteko espetxe** (4); **bizi osorako espetxe** (10); **bost urteko espetxe** (5); **da espetxe** (11); **da espetxe politika** (4); **dagoen espetxe** (5); **den espetxe** (8); **den espetxe politika** (4); **dira espetxe** (5); **dituen espetxe** (6); **du espetxe** (17); **du espetxe zigorra** (4); **duen espetxe** (14); **duen espetxe politika** (8); **duten espetxe** (7); **duten espetxe politika** (4); **egungo espetxe** (20); **egungo espetxe politika** (4); **egungo espetxe politikak** (7); **erdiko espetxe** (7); **erdiko espetxe zigorra** (6); **ere espetxe** (6); **espainiako espetxe** (83); **espainiako espetxe erakundeak** (4); **espainiako espetxe erakundeari** (4); **espainiako espetxe erakundeen** (9); **espainiako espetxe erakundeetako** (24); **espainiako espetxe zuzendariak** (4); **espainiako espetxe zuzendaritzak** (5); **espainiako espetxe zuzendaritzaren** (6); **espainiako gobernuak espetxe** (4); **espainiako gobernuaren espetxe** (7)

espetxe aldaketa (8); **espetxe aldaketak** (4); **espetxe atarian** (7); **espetxe aurrean** (10); **espetxe barruan** (15); **espetxe bat** (9); **espetxe batean** (19); **espetxe batera** (12); **espetxe batera eraman** (4); **espetxe batetik** (4); **espetxe berean** (6); **espetxe berri** (6); **espetxe berria** (23); **espetxe berria egiteko** (4); **espetxe berria eraikitzeko** (5); **espetxe berriak** (7); **espetxe berriaren** (6); **espetxe egoera** (5); **espetxe erakundeak** (10); **espetxe erakundeari** (5); **espetxe erakundeei** (6); **espetxe erakundeek** (17); **espetxe erakundeekin** (4); **espetxe erakundeen** (24); **espetxe erakundeetako** (52); **espetxe erakundeetako zuzendari** (13); **espetxe erakundeetako zuzendariak** (13); **espetxe erakundeetako zuzendaritza** (4); **espetxe erakundeetako zuzendaritzak** (7); **espetxe erakundeko** (5); **espetxe eredua** (7); **espetxe eskumena** (4); **espetxe eskumenak** (5); **espetxe ezagutu** (5); **espetxe horretan** (8); **espetxe kanpoan** (7); **espetxe onurak** (14); **espetxe onurak zigor** (4); **espetxe onurarik** (6); **espetxe politika** (194); **espetxe politika aldatu** (5); **espetxe politika aldatzea** (5); **espetxe politika aldatzeko** (12); **espetxe politika bertan** (4); **espetxe politika eta** (9); **espetxe politika ez** (7); **espetxe politika hiltzailearen** (4); **espetxe politika honekin** (5); **espetxe politika kriminala** (4); **espetxe politikak** (41); **espetxe politikak hil** (7); **espetxe politikan** (31); **espetxe politikarekin** (5); **espetxe politikaren** (52); **espetxe politikaren aldaketa** (4); **espetxe politikaren eta** (5); **espetxe politikari** (20); **espetxe politikari buruzko** (4); **espetxe politikari eta** (5); **espetxe zaintza** (5); **espetxe zaintzako** (38); **espetxe zaintzako epaileak** (5); **espetxe zaintzako epaileari** (5); **espetxe zaintzako epaitegi** (20); **espetxe zigor** (46); **espetxe zigor atzeratua** (5); **espetxe zigor eskaera** (8); **espetxe zigor guztiak** (10); **espetxe zigor osoa** (6); **espetxe zigorra** (415); **espetxe zigorra berretsi** (5); **espetxe zigorra bete** (12); **espetxe zigorra beteta** (4); **espetxe zigorra betetzen** (10); **espetxe zigorra eskatu** (71); **espetxe zigorra eskatua** (4); **espetxe zigorra eskatzen** (19); **espetxe zigorra eta** (41); **espetxe zigorra ezarri** (99); **espetxe zigorra jarri** (19); **espetxe zigorra jaso** (9); **espetxe zigorra osorik** (9); **espetxe zigorrak** (35); **espetxe zigorrak eskatu** (5); **espetxe zigorrak jarri** (5); **espetxe zigorraren** (12); **espetxe zigorrari** (4); **espetxe zigorrera** (13); **espetxe zigorrera kondenatu** (10); **espetxe zigorretik** (4); **espetxe zuzendariak** (8); **espetxe zuzendaritzak** (14); **espetxe zuzendaritzaren** (7); **espetxe zuzendaritzari** (4)

espetxez espetxe (5); **eta erdiko espetxe** (5); **eta espainiako espetxe** (7); **eta espetxe** (77); **eta espetxe politika** (17); **eta espetxe politikaren** (6); **eta espetxe zigorra** (5); **ezarritako espetxe** (20); **ezarritako espetxe zigor** (6); **ezarritako espetxe zigorra** (9); **frantziako espetxe** (10); **frantziako espetxe batean** (4); **frantzian ezarritako espetxe** (6); **gallizo espainiako espetxe** (14); **gallizo espetxe** (8); **gallizo espetxe erakundeetako** (6); **gobernuak espetxe** (7); **gobernuaren espetxe** (8); **gobernuaren espetxe politika** (7); **hainbat espetxe** (6); **hainbat espetxe ezagutu** (4); **hamabost hilabeteko espetxe** (5); **hamar hilabeteko espetxe** (7); **hamar urteko espetxe** (8); **hamarna urteko espetxe** (8); **hil arteko espetxe** (6); **hilabeteko espetxe** (69); **hilabeteko espetxe zigor** (7); **hilabeteko espetxe zigorra** (61); **hileko espetxe** (7); **hileko espetxe zigorra** (7); **hiru urteko espetxe** (15); **indarrean den espetxe** (6); **indarrean duten espetxe** (4); **langraizko espetxe** (4); **lau urteko espetxe** (16); **mercedes gallizo espetxe** (8); **nazionaleko espetxe** (14); **nazionaleko espetxe zaintzako** (13); **oinarritutako espetxe** (5); **osorako espetxe** (10); **osorako espetxe zigorra** (7); **paroti ezarritako espetxe** (4); **presoen espetxe** (4); **sei hilabeteko espetxe** (8); **sei urteko espetxe** (5); **urte arteko espetxe** (16); **urtebeteko espetxe** (15); **urtebeteko espetxe zigorra** (14); **urteko espetxe** (234); **urteko espetxe zigor** (11); **urteko espetxe zigorra** (201); **urteko espetxe zigorraren** (6); **urteko espetxe zigorrera** (6); **urterako espetxe** (7); **urterako espetxe zigorrera** (5); **zazpi urteko espetxe** (6); **zen espetxe** (4); **zioten espetxe** (6); **zioten espetxe zigorra** (5); **zortzi hilabeteko espetxe** (9); **zortzi urteko espetxe** (13); **zuen espetxe** (9); **zuten espetxe** (4)

baldintzarik gabeko espetxea (4); **espetxea da** (6); **espetxea eskatu** (5); **espetxea eta** (8); **espetxea utzi** (4); **espetxeak ez** (6); **eta espetxea** (5); **eta espetxeak** (4); **gabeko espetxea** (5); **langraizko espetxea** (5); **urteko espetxea** (5)

abu ghraib espetxean (4); **abu ghraibeko espetxean** (4); **abu graib espetxean** (9); **abu graibeko espetxean** (9); **aki uria espetxean** (5); **albaceteko espetxean** (4); **alcalako espetxean** (6); **arabako espetxean** (7); **aranjuezko espetxean** (12); **basauriko espetxean** (13); **bat espetxean** (7); **bizitza osoa espetxean** (4); **brievako espetxean** (4); **cuencako espetxean** (5); **da espetxean** (7); **daramatza espetxean** (6); **daude espetxean** (6); **del real espetxean** (8); **del realeko espetxean** (5); **dira espetxean** (4); **ditu espetxean** (12); **du espetxean** (6); **edo espetxean** (6); **egin ditu espetxean** (4); **egin zuen espetxean** (4); **egun espetxean** (9); **eko espetxean** (10); **erdi espetxean** (6); **espetxean bi** (4); **espetxean dago** (35); **espetxean dagoen** (16); **espetxean daude** (16); **espetxean dauden** (47); **espetxean dauden euskal** (14); **espetxean dauden hiru** (4); **espetxean eduki** (4); **espetxean edukitzea** (4); **espetxean edukitzeko** (4); **espetxean egin** (12); **espetxean egin ostean** (5); **espetxean egon** (22); **espetxean egon zen** (5); **espetxean egona** (4); **espetxean egonda** (4); **espetxean egotea** (4); **espetxean eman** (17); **espetxean eman ondoren** (10); **espetxean ere** (6); **espetxean erredakzioa** (4); **espetxean eta** (9); **espetxean ez** (9); **espetxean hil** (11); **espetxean hildako** (12); **espetxean hildako igor** (4); **espetxean izan** (17); **espetxean jarraitzen** (10); **espetxean preso** (24); **espetxean preso dagoen** (4); **espetxean sartu** (55); **espetxean sartu dute** (11); **espetxean sartu eta** (4); **espetxean sartu zuten** (15); **espetxean sartuko** (4); **espetxean sartzea** (8); **espetxean sartzeko** (9); **espetxean sartzeko agindu** (5); **espetxean sartzen** (5); **espetxean segi** (4); **espetxean sei** (6); **espetxean zegoela** (7); **espetxean zegoen** (19); **espetxean zela** (4); **espetxean zeuden** (5); **eta erdi espetxean** (6); **eta espetxean** (31); **fleury merogis espetxean** (4); **fresneseko espetxean** (5); **gaur egun espetxean** (4); **ghraib espetxean** (4); **ghraibeko espetxean** (4); **graib espetxean** (9); **graibeko espetxean** (9); **hilabete espetxean** (4); **iñ iruñ izan zituen espetxean** (4); **jerikoko espetxean** (5); **ko espetxean** (4); **la santeko espetxean** (6); **langraizko espetxean** (15); **logroñ martuteneko espetxean** (8); **merogis espetxean** (4); **norte espetxean** (4); **ohia espetxean** (4); **oko espetxean** (7); **oraindik espetxean** (11); **osoa espetxean** (4); **otegi espetxean** (5); **presoek espetxean** (5); **real espetxean** (8); **realeko espetxean** (5); **reclusorio norte espetxean** (4); **santeko espetxean** (6); **santeko espetxean sartu** (4); **uria espetxean** (6); **uriak espetxean** (6); **urte espetxean** (18); **urte espetxean egin** (4); **urte espetxean eman** (6); **villenako espetxean** (4); **ziren espetxean** (4); **zituen espetxean** (11); **zuen espetxean** (8); **zuerako espetxean** (6); **zuten espetxean** (6)

alcala mecoko espetxera (4); **algecirasko espetxeetara** (4); **aranjuezko espetxetik** (6); **atera zen espetxetik** (7); **da espetxera** (5); **da espetxetik** (7); **dauden espetxeetan** (4); **del real espetxetik** (5); **del realeko espetxetik** (6); **dira espetxetik** (6); **dituzte espetxeetan** (4); **du espetxera** (5); **du espetxera joan** (4); **eaeko espetxeen** (5); **espainiako espetxeen** (8); **espainiako espetxeetako** (9); **espainiako espetxeetan** (16); **espainiako estatuko espetxeetan** (6); **espetxearen aurrean** (7); **espetxeen egoera** (5); **espetxeen erakundeko** (5); **espetxeen eskumena** (4); **espetxeetako bizi** (6); **espetxeetako bizi baldintzak** (4); **espetxeetako egoera** (9); **espetxeetako erakundeak** (4); **espetxeetako eskumena** (8); **espetxeetako zuzendari** (4); **espetxeetan bizi** (7); **espetxeetan bizi duten** (4); **espetxeetan dauden** (22); **espetxeetan dauden euskal** (9); **espetxeetan dituzten** (4); **espetxeetan egon** (4); **espetxeetan ere** (5); **espetxeetan izan** (4); **espetxeetan izan da** (4); **espetxeetan sakabanatuta** (4); **espetxeetara eraman** (4); **espetxeetara joan** (4); **espetxeko arduradunek** (4); **espetxeko bere** (6); **espetxeko bizi** (4); **espetxeko egoera** (5); **espetxeko erietxean** (5); **espetxeko euskal** (10); **espetxeko euskal presoek** (6); **espetxeko preso** (7); **espetxeko segurtasun** (4); **espetxeko ziegan** (5); **espetxeko zuzendariak** (10); **espetxeko zuzendariari** (5); **espetxeko zuzendaritzak** (4); **espetxera bidali** (25); **espetxera bidali zituen** (5); **espetxera bidali zuen** (5); **espetxera bidean** (6); **espetxera eraman** (46); **espetxera eraman dute** (8); **espetxera eraman zuten** (18); **espetxera eramango** (5); **espetxera eta** (4); **espetxera ez** (5); **espetxera iritsi** (4); **espetxera itzuli** (6); **espetxera joan** (26); **espetxera joan beharko** (8); **espetxera joango** (5); **espetxera joateko** (4); **espetxera sartu** (4); **espetxera sartzeko** (4); **espetxerako bidean** (18); **espetxetik atera** (48); **espetxetik atera eta** (8); **espetxetik atera zen** (5); **espetxetik ateratzea** (4); **espetxetik ateratzean** (6); **espetxetik ateratzeko** (8); **espetxetik ateratzen** (4); **espetxetik bueltan** (5); **espetxetik etxerako** (8); **espetxetik etxerako bidean** (8); **espetxetik ihes** (14); **espetxetik irten** (17); **espetxetik irten eta** (4); **espetxetik irtetean** (4); **espetxetik irteteko** (4); **espetxetik kanpo** (7); **espetxez aldatu** (18); **espetxez aldatu dituzte** (5); **espetxez aldatu zituzten** (4); **espetxez espetxe** (5); **estatuko espetxeetan** (7); **eta algecirasko espetxeetara** (4); **eta espainiako espetxeetan** (8); **eta espetxearen** (4); **eta espetxeetan** (8); **eta espetxeko** (7); **eta espetxera** (20); **eta espetxera eraman** (5); **eta espetxetik** (10); **euskal herriko espetxeetan** (12); **euskal herriko espetxeetara** (5); **euskal presoek espetxeetan** (8); **frantziako espetxeetan** (17); **fresnesko espetxeko** (5); **galindo espetxetik** (6); **hainbat espetxetan** (17); **hainbat espetxetan egon** (4); **herriko espetxeetan** (12); **herriko espetxeetara** (5); **irten zen espetxetik** (7); **la sante espetxetik** (6); **langraizko espetxeko** (7); **langraizko espetxera** (4); **langraizko espetxetik** (7); **martuteneko espetxeko** (6); **martuteneko espetxera** (5); **martuteneko espetxetik** (8); **mecoko espetxera** (4); **otegi espetxera** (6); **preso espetxez** (9); **preso espetxez aldatu** (9); **presoak espetxetik** (6); **presoek espetxeetan** (12); **real espetxetik** (5); **realeko espetxetik** (6); **sante espetxetik** (6); **zen espetxetik** (15); **ziren espetxetik** (4); **zuen espetxeko** (4); **zuen espetxera** (4); **zuen espetxetik** (5); **zuten espetxera** (6)

---

espetxealdi **1** *iz* espetxean ematen den denbora.

Ezkondua, ume bat izana [...], gero gerratea, **espetxealdia**, Düsseldorfera itzultzea, eta abar: ni harritu ere bai, denbora nola badoan, denok nola zahartzen ari garen. Joxe Austin Arrieta

Espetxealdiko lehen egunetik bertatik, jendea eta bizitza espektro eta panpina mekanikoen mundu beldurgarri eta ulertezina izan ziren berarentzat. Jose Morales

Erresuma Batuko Poliziaren laguntzaile ohi bati 22 urteko **espetxealdia** ezarri zion atzo Belfasteko auzitegi batek 1989. urtean Pat Finucane abokatu nazionalista tiroz hil izanagatik. Berria - Mundua

Asko jota, 18 hilabeteko **espetxealdia** bete beharko luke, edonola ere. Berria - Gaiak

Gallizok nabarmendu zuen presoekiko jarrera «humanitarioa» dutela Espetxe Erakundeek eta horregatik erabaki zutela Galindok **espetxealdia** etxean betetzea. Berria - Euskal Herria

Kamar Al-Samani hamabost bat eguneko **espetxealdiak** ez dio kalterik egingo. Patxi Zubizarreta

Arlo juridikoan azkenaldian izandako «erasoaldi berria» ere gogora ekarri du: «Milaka saio egin ostean, jada lortu dute bizi osorako **espetxealdiak** aplikatzea. Berria - Harian

Badaki edo heriotzerat edo hil arteko **espetxealdira** kondenatuko dutela. Berria - Harian

Bere libururik ezagunenean, Kapitalaren pilatzea, pairatu zituen **espetxealdietako** batean idatzia, kapitalismoa barne kontraesanek desagerraraziko zutela aldarrikatu zuen. Markos Zapiain

Bere bizitza eskandalu hutsa izan zen bere orgia, obra, epaiketarik gabeko **espetxealdi** eta sexu librearen eta ateismoaren apologiagatik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hara non, ordea, berau osatzera datorren espetxe politika zahar-berria trinkotzen ari den: bizi arteko **espetxealdia** hain zuzen. Berria - Euskal Herria

Ebazpen judizialetan agertzen ez diren hamaika zigor eransten dizkiote **espetxealdiari**. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Azken finean, **espetxealdi** luze batekin jolastea baitzen hura, arrisku izugarria bere gainean hartzea, gerokoa nola suertatu zen ikusirik ere. Migel Angel Mintegi

Atzo aske irtendakoek bezala, Lizasok eta Garmendiak ere dagoeneko bi urte baino gehiago bete dituzte espetxean eta badaezpadako **espetxealdiaren** epea gainditu dute. Berria - Euskal Herria

Rodriguez eta Epelde beste auzi bategatik dituzte behin behineko **espetxealdian**. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behin behineko espetxealdian (10); **behineko espetxealdian** (10); **behineko espetxealdian egon** (3); **bi urteko espetxealdia** (3); **espetxealdia bete** (5); **espetxealdia luzatzeko** (6); **espetxealdian egon** (3); **espetxealdiko lehen** (4); **hilabeteko espetxealdia** (3); **urteko espetxealdia** (12)

---

espetxekide *iz* norbaiti buruz, espetxe berean dagoen pertsona.

Barrena gogorki oratua zidan neure **espetxekide** anbiguo harekiko bekaitz mingarri batek, berehala itzuliko baitzen hura bere bizitza prekario baina munstroski libre hartara, bere urre-lats koxkorrera, azkenik gabeko egun-ilara batera. Juan Garzia

Espetxekideak jakinguraz begiratzen zidan: [...]. Juan Garzia

---

espetxeraketa *iz* espetxeratzea.

HBko Mahai Nazionalaren **espetxeraketa**. Pako Aristi

---

espetxerarazi, espetxeraraz(i), espetxerarazten du *ad* espetxeratzera behartu.

Zergatik **espetxerarazi** Otegi, fidantza ordaintzeko eperik eman gabe? Berria - Harian

---

espetxeratu, espetxera(tu), espetxerazten **1** du *ad* espetxean sartu, espetxera eraman. ik **presondegiratu**.

Delitu batez akusatutako pertsonak, **espetxeratua** eta libre utzia izan ondoren, ez luke fama txarraren orbanik eraman behar. Juan Martin Elexpuru

Haietako batzuk zigortu egin zituzten, beste batzuk **espetxeratu**, eta beste batzuei arropa kendu eta kalejiran eraman zituzten biluzik. Askoren artean

Kartzelan hamabi urte egin ostean kaleratu zuten, urtebete-edo kanpoan eman eta, fiskalak hala eskatuta, epaileak berriro **espetxeratu** zuen, kondenaren murrizketa eman zion aginduan akatsak zeudela argudiatuz. Paddy Rekalde

Edonor atxilo eramaten zuten laster asko, susmo hutsarekin sarri, eta egurra ematen zioten, nola gainera, eta urtetarako **espetxeratu** gero, legez kanpoko alderdi politiko batean zebilelako, besterik gabe. Juan Kruz Igerabide

Han atxilotu zuen poliziak, eta **espetxeratu** egin zuten. Lander Garro

Atxilotuetatik 14 auzipetu dituzte, eta horietatik 12 **espetxeratu**. Berria - Mundua

Maider Viso: Baldintzarik gabe **espetxeratu** dute. Berria - Euskal Herria

Txinaren ondotik, Vietnamek, Maldivek eta Siriak **espetxeratu** dute ziberdisidente gehien. Berria - Gaiak

Fiskalaren eskaerari erantzun eta baldintzarik gabe **espetxeratzeko** agindu du Garzonek. Berria - Euskal Herria

Abokatuak solidarioak **espetxeratzeko** aginduaren aurkako helegitea jarri zuen. Edurne Elizondo

Ez zen agertzen ere hil egin zutelako, edo elbarritu, edo harrapatu, edo erre, edo **espetxeratu**, edo jipoitu, edo kaleratu, edo oinkatu, edo bortxatu edo engainatu, hori ez baitzen iristen egunkariko albiste baten mailara. Anton Garikano

Espetxeraturik dauden idazleak PEN klubetako ohorezko idazle izendatzen dituzte. Berria - Kultura

Mila bider izan ziren irainduak, lotsatan jarriak, biluziak, zigorkatuak, katez lotuak, **espetxeratuak**. Askoren artean

1997an aske utzi zuten Olabarria, **espetxeratutako** gainerako kideekin batera, abokatuak aurkeztutako helegitea zela medio. Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Berehala heldu zen errukarrien laguntzailea eta bisita egin zion gupidatsu **espetxeratuari**. Askoren artean

Hango higiene egoera negargarriaren ondorioz, tifus epidemia bat izan zen; milaka **espetxeratu** hil ziren. Josu Zabaleta

Betiko daukat tatuatua, bizi osoan izanen naiz **espetxeratu** bat. Koldo Izagirre

Espetxeratu txiro deus gabea bihurturik zegoen, ez baliabiderik ez egitasmorik zuen, eta behin Joliet-ko espetxean zigorra betetakoan, confetti eskutada baten moduan jaurtiko zuten lau haizetara. Oskar Arana

Espetxeratu kopuruan okertu egin dira txostenean, oraindik hiru lagun kartzelan daudela esaten baitu. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnaldo otegi espetxeratu (4); **atxilotu eta espetxeratu** (18); **baldintzarik gabe espetxeratu** (3); **basaurin espetxeratu** (3); **bat espetxeratu** (20); **bat espetxeratu dute** (11); **bat espetxeratu zuten** (7); **berriro espetxeratu** (11); **berriro espetxeratu zuten** (8); **carabanchelen espetxeratu** (3); **carabanchelen espetxeratu zuten** (3); **del realen espetxeratu** (6); **edo espetxeratu** (3); **ere espetxeratu** (3); **espetxeratu ditu** (7); **espetxeratu dituzte** (18); **espetxeratu dute** (29); **espetxeratu dute ustez** (3); **espetxeratu duten** (4); **espetxeratu egin** (45); **espetxeratu egin dituzte** (4); **espetxeratu egin du** (3); **espetxeratu egin dute** (4); **espetxeratu egin zituen** (4); **espetxeratu egin zituzten** (6); **espetxeratu egin zuen** (5); **espetxeratu egin zuten** (16); **espetxeratu eta** (7); **espetxeratu izana** (4); **espetxeratu nahi** (3); **espetxeratu ninduten** (5); **espetxeratu zituen** (8); **espetxeratu zituzten** (17); **espetxeratu zituztenean** (3); **espetxeratu zuen** (10); **espetxeratu zuten** (64); **espetxeratu zuten atzo** (8); **espetxeratu zuten berriro** (3); **espetxeratu zuten eta** (5); **espetxeratu zuten martutenen** (3); **espetxeratu zutenean** (4); **espetxeratu zutenetik** (3); **eta espetxeratu** (34); **eta espetxeratu egin** (12); **eta espetxeratu zuten** (10); **eta martutenen espetxeratu** (4); **ez nintzelako espetxeratu** (3); **gabe espetxeratu** (4); **gizon bat espetxeratu** (9); **lagun espetxeratu** (3); **martutenen espetxeratu** (4); **martutenen espetxeratu zuten** (3); **nintzelako espetxeratu** (3); **nintzelako espetxeratu ninduten** (3); **ostean espetxeratu** (4); **otegi espetxeratu** (8); **realen espetxeratu** (6); **realen espetxeratu zuten** (3); **torturatu eta espetxeratu** (3)

atxilotu eta espetxeratutako (3); **dira espetxeratuak** (3); **espetxeratua izan** (3); **espetxeratuak aske** (3); **espetxeratuak izan** (5); **espetxeratuak izan ziren** (3); **espetxeratuta dagoen** (3); **espetxeratuta dauden** (7); **espetxeratutako beste** (4); **eta espetxeratuak** (7); **eta espetxeratutako** (5); **mexikon espetxeratuta** (3); **mexikon espetxeratuta dauden** (3)

arnaldo otegi espetxeratzea (5); **arnaldo otegi espetxeratzeko** (5); **arnaldo otegiren espetxeratzea** (4); **badaezpadako espetxeratzea** (8); **baldintza gabe espetxeratzeko** (3); **baldintzarik gabe espetxeratzeko** (17); **baldintzarik gabeko espetxeratzea** (9); **bat espetxeratzeko** (5); **behin behineko espetxeratzea** (7); **behineko espetxeratzea** (7); **berriro espetxeratzeko** (3); **del realen espetxeratzeko** (8); **epaileak espetxeratzeko** (5); **epaileak espetxeratzeko agindua** (3); **espetxeratzea agindu** (13); **espetxeratzea agindu zuela** (3); **espetxeratzea berretsi** (4); **espetxeratzea da** (3); **espetxeratzea erabaki** (3); **espetxeratzea eskatu** (20); **espetxeratzea eskatu du** (6); **espetxeratzea eskatu zuen** (6); **espetxeratzea eskatuko** (6); **espetxeratzea luzatzeko** (3); **espetxeratzea onartezina** (3); **espetxeratzea salatu** (4); **espetxeratzea salatzeko** (5); **espetxeratzeko agindu** (47); **espetxeratzeko agindu du** (10); **espetxeratzeko agindu zuen** (34); **espetxeratzeko agindua** (32); **espetxeratzeko agindua eman** (24); **espetxeratzeko aginduaren** (3); **espetxeratzeko eskatu** (7); **espetxeratzeko eskatu zuen** (3); **espetxeratzeko eskatuko** (6); **espetxeratzeko eskatuko duela**

(4); **espetxeratzen dituzte** (3); **eta espetxeratzea** (5); **eta espetxeratzeko** (3); **fiskaltzak espetxeratzea** (4); **gabe espetxeratzeko** (20); **gabe espetxeratzeko agindu** (7); **gabe espetxeratzeko agindua** (5); **gabe espetxeratzeko eskatu** (3); **gabe espetxeratzeko eskatuko** (3); **gabeko espetxeratzea** (10); **gabeko espetxeratzea eskatu** (4); **gaztea espetxeratzeko** (3); **gazteak espetxeratzeko** (3); **otegi espetxeratzea** (13); **otegi espetxeratzearen** (3); **otegi espetxeratzeko** (13); **otegiren espetxeratzea** (14); **realen espetxeratzeko** (8); **realen espetxeratzeko agindu** (8); **urteko espetxeratzea** (10); **urteko espetxeratzea eskatu** (6)

---

espetxeratze *iz* espetxean sartzea, espetxera eramatea.

Espetxeratzeak mesede handia egingo dizula. Antton Olano

Konponbidearen logikaren aurka doaz **espetxeratzeak**, Gerry Adamsen arabera. Berria - Euskal Herria

Aste honetan izandako **espetxeratzeak** arbuiatu dituzte Gasteizen eta Baionan. Berria - Euskal Herria

Haren erabakia inolako eztabaidarik gabe onartu izan zuen beti, eta ondorioz, onartu egin zuen **espetxeratze** hura ere negu gorriko aste ankerrak amaitu artean. Mirentxu Larrañaga

Bigarren **espetxeratze** honek psikologikoki kalte oso handia egin zion Jon Bengoari, itzela, halaxe komentatu ziguten bere familiakoek, depresio gero eta sakonago batean murgildua zela. Paddy Rekalde

Epaileak, ordea, behin-behineko **espetxeratzea** baino neurri malguagoak ezarri dizkie. Berria - Ekonomia

Hori gertatu baino lehen, Fiskaltzak hil arteko **espetxeratzea** eskatua zuen bost akusaturentzat eta 4 eta 22 urte eta erdi bitarteko kartzela zigorrak gaineratiko auzipetuen aurka. Berria - Mundua

Zigorrik gogorrenak Xabier Alegria eta Ramon Urangarentzat galdegin ditu: 51 urteko **espetxeratzea** bakoitzarentzat. Berria - Euskal Herria

Askatasunak gogor salatu du badaezpadako **espetxeratzea** bost urte luzatu izana. Berria - Euskal Herria

Badaezpada ere, Harresi Handia-ko sukaldariaren **espetxeratze** prebentiboa agindu du. Patxi Iturritegi

Lekukotza latz hori Txileko **Espetxeratze** Politiko eta Torturei buruzko Batzordeak (Valech Batzordea) jaso du. Berria - Mundua

Baldintzapeko **espetxeratze** egoeran dago Parisko Fleury-Merogis kartzelan. Berria - Mundua

Fiskalak **espetxeratze** data hartu zuen aintzat **espetxeratzea** luzatzeko eskatzeko, eta ordurako behin-behineko espetxealdia betea zuen. Berria - Euskal Herria

Zigor Reizabal abokatuak jakinarazi zuen gaur bertan jarriko dutela helegitea **espetxeratze** autoaren kontra. Berria - Euskal Herria

Jone Goirizelaia Abokatuak gaur aurkeztuko ditu **espetxeratze** erabakien aurkako helegiteak. Berria - Euskal Herria

Espetxeratzearen helburua Gobernuak ETArekin izan lezakeen negoziazio prozesu batean soka tenkatzea dela iritzi dio. Berria - Harian

Herenegun goizean askatasun eta **espetxeratzeen** epaileak baldintzapean aske uztea onartu eta prokuradoreak ez duela helegitea aurkeztuko segurtatu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

---

espetxezain *iz* espetxea zaintzen duen pertsona.

Egun batean, **espetxezaina** ziegaren aurretik igaro zen eta ateko begirazulotik oihukatu zion: [...]. Jose Morales

-Noiz, noiz -haserretu zen **espetxezaina**, agure kamuts eta erretxina baitzen-. Jose Morales

Bizitza osoa espetxean eman zuen eta hango arauak naturaren legeen parekotzat hartzen zituen **espetxezain** zaharrari iruditu zitzaion espetxea eta bere bizitza osoa halako zoroetxe bat zirela, eta bera zoro nagusia zela. Jose Morales

Gainera, guardiako **espetxezainak** -bera ere zaharra- kolpetxo suspergarri batzuk eman zizkion buruan, eta horrek ere bere eragina izan zuen. Jose Morales

Lorazain- **espetxezainak** giltzarrapo lodia zabaldu, eta txoritegian sartu zen Max. Jon Muñoz

---

espetxezaintza *iz* espetxeen zaintza.

Espetxezaintzak baimena ematen badio, gaur Iruñeko espetxera ekarriko dute Alcala Mecotik. Berria - Euskal Herria

Karmele Solagurenen heriotzaren «erantzule politikoa» Espainiako **Espetxezaintzako** burua dela esan zuen Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramaileak atzo. Berria - Euskal Herria

Espetxezaintzako arduradunak hainbatetan esan du sakabanaketa politikari eutsi egingo diotela eta politika horren alde egiten duenak heriotza hauek gertatzearen alde egiten du», salatu zuen Otegik Batasuneko hainbat mahaikiderekin batera Iruñean emandako prentsaurrekoan. Berria - Euskal Herria

---

espezi ik **espezi**a.

---

espezia *(orobat **espezi** g.er.)* **1** *iz* gai begetala, janariei zapore gehiago emateko erabiltzen dena.

Lur horretan **espezia** anitz bada, hitze, muzkada eltzaur, Indiako eltzaur handi, kanela eta bertze. Aurelia Arkotxa

Arabiarrek kardamomoa, iltze-kanela eta beste zenbait **espezia** erabiltzen omen dituzte kafeari zapore berezia emateko, ekialde misteriotsuko kutsu miresgarri hori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Van Daan jaunak hestebete, haragi eta **espezia** merkataritzan lan egin du bere bizitza guztian. Josu Zabaleta

Hamar bat arroa neguko patata ere baditugu, **espeziak** gordetzeko gelan. Josu Zabaleta

Intsentsuz, sandaloz, azafranez, argizariz, kakaz, **espeziaz**, jan hondakinez, fruitu ustelez, landarez eta giza izerdiz osatutako usaina. Gotzon Garate

Ameriketatik **espeziak** ekartzen zituztenak. Pako Aristi

Bera ez zen Marco Polo, **espeziak**, lore lurrintsuak eta enparauak bildumatzen zituena. Harkaitz Cano

Ogi arraspatuak, fina eta larria, ogiztatzeko ogi mamia, intxaur muskatua, iltzea, piperbeltzak eta beste **espeziak** paraturik zeuden lerro-lerro. Karlos Zabala

Maddalenek, kozinari aparta zen neurrian, baitzekien jan-edanei nahastu beharreko belarren eta **espezien** berri. Joan Mari Irigoien

Espezien merkataritzak milaka milioi euro mugitzen ditu urtero munduan. Berria - Gaiak

-Bi litro ezti-ur bero **espeziekin**? Iñaki Mendiguren

2 (izenondoekin)

Bazkaria eta afaria berdintsu dira: arroza, ilarrak, gisatu pixka bat, barazkiak ongi egosiak piper hautsarekin eta **espezia** bizi-biziekin. Gotzon Garate

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Plater birakari batean edukitzen ziren plastikozko **espezia**-pote haiek. Joxan Elosegi

Mango eta banana eta beste hamaika fruiturenak, hamaika **espezia** motarenak eta beste hainbesterenak ere ekarri zizkion haize beroak nahasian. Xabier Montoia

Lo, berriz, idi-gurdietan, abandonatutako eskoletako jarleku eta aulkietan, edo beste barik udako zeru izartsuaren pean, soropiletan, parkeetako belar bigunetan, **espezia**-ogi itxurako etxe ederren artean. Urtzi Urrutikoetxea

Van Daan jaunak hestebete, haragi eta **espezia** merkataritzan lan egin du bere bizitza guztian. Josu Zabaleta

Lekari azala kentzea kontu handiz egin beharreko lana da, dentista askojakinentzat edo **espezia** prestatzaile erretxinentzat ona agian, baina nik bezain pazientzia laburra duen neska batentzat izugarrizkoa da. Josu Zabaleta

Denbora berean, hirugarren zikloko ikasleek belar usaintsuak, barazkiak eta **espezia** ongailuak ezagutu dituzte. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta espezia (3)

---

espezial 1 *izond* berezia; oso ona.

Emakume **espeziala** zen Karmen, atso beldurgarri bat, beroa tratuan, eta, haserretzen zenean, haren nerbioak airea bera ere kiskaltzen jartzen zuen horietakoa. Anjel Lertxundi

"Bi arrautza bi aldetatik eginak, patata frijituak, laranja ura eta kafea", "gosari **espezial** bat", "bi **espezial"** , mahai zerbitzarien aginduak pilatu egiten ziren. Iñaki Zabaleta

Francois Duval belgikarra (Ford) izan zen onena (hiru **espezial** irabazi zituen), baina azkeneko **espezialean** oztopo bat jo eta gurpila txikitu zuen. Berria - Kirola

Western bat ikusten zihardu en, eta bide batez grabatzen; antzinakoa, dialogo asko eta efektu **espezialik** batere ez. Unai Iturriaga

Irakurketa soila da, eta efektu **espezialak** ez ditut gustuko. Berria - Kultura

Lana inori agintzeko, **espeziala** zen Godot. Iñaki Iñurrieta

-Ezer **espezialik** ez. Eskarne Mujika

Oker bat egingo duela jakinda ere, kafetegira sartu eta gosari kontinentala eskatu du; Edurnek aipatu bezala, **espeziala** dago. Iban Zaldua

Gu danok bere **espezial** samarrak gara eta Rufo pentsa. Xabier Amuriza

(1999) diskoa kaleratu zuen, artista zinez **espeziala** zela erakutsiz. Berria - Kultura

2 irud/hed arraroa.

Adineko pertsona asko zaindu zituela esan zuen Nemiak, baina Santos izan zela **espezialena** . Unai Elorriaga

"Erredaktore **espeziala** da" aditu nian behin zuzendariarekin ari hintzela, baina nik uste diat, kazetaritzan baino areago, bertzetan zela **"espeziala"** . Aingeru Epaltza

3 (adizlagun gisa)

Ez zegoen batere talaka, **espezial** pasatu dugu! Nire klasean eztabaida asko zegoenez emakumeen hankarteaz, eta bazegoenez errepikatzaile bat ikusia zuena eta **espezial** deskribatzen zuena, niri horrelako jakin-mina sortu zitzaidan. Fernando Rey

Suteen ondoko lur agortu eta pobretuan, **espezial** moldatzen da han ere: hazia medio, han sortuko dira berriak, beren erpin goikoa difuminaturik horixkatuta. Pello Zabala

Drogen eta prostituzioaren arloan italiarrak **espezial** moldatzen baitziren. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espezial samarrak (3); **espeziala zen** (3)

---

espezialdu, espezial(du), espezialtzen 1 da *ad* espezializatu.

Ilobaren berritu beharra: haren eraginez, alpapa eta ahuntz-larruak esportatzeari utzi, eta inportazioetan **espezialdu** ziren, bertan zen portuges tropari begira: arroza, whiskia, tabakoa. Pablo Sastre

Horixe esan zioten Hegoaldeko azentuaz, gure literatura zaharrean **espezialdutako** Mintxori. Hasier Etxeberria

Unitate horiek ohe kopuru jakin bat izan behar lukete, tratamendu protokolo eta **espezialduriko** pertsonekin. Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Badaki, halaber, bezeriak oso estimutan izaten dituela zerbitzu bereziak, **espezialduak** , arrunkeriari ihes egiten diotenak. Anjel Lertxundi

Tratatzen ari garen gaixoen heren bat inguru buru osasun etxeetan artatzen ditugu, lehen aipatu dudan oinarrizko maila **espezialduan** . Berria - Euskal Herria

Batik bat aukera hauek nabarmendu zituen: informazio bolumen handia erabiltzeko ahalmena, erabiltzaileen araberako pertsonalizazioa, gune **espezialduak** sortzeko posibilitatea, edozein bitarteko (testua, irudia, bideoa,...) erabiltzeko aukera, iritzi-truke dinamiko eta askeagoa bideratzeko ahalmena eta datu-base erraldoiak kontsultatzeko erraztasuna. Txema Ramirez de la Piscina

Noizean behin, gainera, enuntziatu-mota **espezialduetan** adieraziak: erreferentziak, eztabaida kritikoak. Xabier Arregi

---

espezialista 1 *iz* jakintza, teknika edo artearen alor jakin eta aski mugatu batean ezaguera sakona duen pertsona.

Sendagileen artean, %51,8 mediku orokorrak, %37 **espezialistak** eta %10,6 pediatrak dira. Berria - Euskal Herria

Ez dakit, gerta liteke kanpotik ere ekartzen ditugun **espezialista** horiek ez izatea adituak puntu honetan. Pello Salaburu

Gure **espezialistek** haren ordenagailua miatuko ditek. Aingeru Epaltza

Gizarte moderno batek zerbait behar baldin badu, ongi prestatutako **espezialistez** gain zerbait behar badu, berriz ere diogu, edozein egoeratan ongi moldatuko diren langileak behar ditu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Jakina da erlojupekoetan **espezialista** dela Bradley McGee. Berria - Kirola

Historia garaikidean **espezialista** zen eta nazismoa sakonki aztertu zuen. Berria - Kultura

Digestio-aparatuan **espezialista** zen lagun batek esan zidanez, hesteetako infekzio larri bat zuen. Joan Mari Irigoien

Biharamunean, neure karrerako une magiko haiek laburbilduko zituen bideo bat egin ziezadala eskatu nion ikus-entzunekoetan **espezialista** zèn lagun bati. Joan Mari Irigoien

Automobilen makinerian **espezialista** izanik, poz-pozik onartu zuen arlo horretako enpresa boteretsuenaren eskaintza, Mercedes Benzena. Jon Arretxe

Bazuen, izan ere, Madrilgo grazia xalo eta erne hori, madrileñismoan **espezialista** direnen gisagabekeria ergel eta fazatiekin zerikusirik batere ez duena. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

O. irakaslea nolabaiteko eredu izan da beti niretzat: ez du Nobel Saririk irabazi, ezta Züricheko ETHko beste zenbait irakaslek gozatu duten mundu-mailako osperik bereganatu ere, baina hura baino **espezialista** serioagorik nekez. komenigarria ikusten zuela, ni, denbora gehiago galdu gabe, **espezialista** on baten tratamendupean jar nendin. Joxe Austin Arrieta

Europako **espezialistarik** onenetakoa izango zen Malco beharbada, espageti bat dominatzeko gai ez bazen ere. Unai Elorriaga

Jardunaldien izena honako hau da: "Traidorearen eta heroiaren gaia literaturan", eta **espezialista** mordo bat elkartuko ditu hiru egunetan zehar. Jon Alonso

Autismoko **espezialista** Isabelle Rapinek azpimarratzen du maila biologikoan bereiz daitezkeela bi eritasun horiek, nahiz eta batzuetan antzekoak izan portaeraren aldetik. Xabier Olarra

Bai, maitea, jakina nerbioetako **espezialista** dela. Mirentxu Larrañaga

Horren ondotik, nerbio, bihotz, bular eta buruko **espezialistengana** jo zuen, eta mikrobioek eta gaitz ezkutuek populatutako mundu baten ateak zabaldu zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Diseinu grafikoko **espezialista** batek dekorazio aldizkari baterako atondutako bodegoi postindustriala. Aingeru Epaltza

Aurten baina, zorte txarra, bidean topo egin du azken urteetako lau t'erdiko **espezialista** handienetako batekin. Berria - Kirola

Kirol horretako **espezialista** onenak, marka ezagunenak, eta kirol horren jardunarekin lotura estua duten pertsona eta elkarteak bilduko dira otordu batean egun horretan. Berria - Kirola

Polinomioen aita zela, 3. mailako ekuazioen **espezialista** , astronomo ospetsua. Jon Muñoz

Harreman estuetarako dohain berezia zuen, ongi konpondu zen hango eskimalekin, eta nolabaiteko **espezialista** bihurtu zen medikuntza polarrean. Xabier Olarra

XX. mendeak ikusi du espezializazioaren garapena, gure inguruko gauza guztiak gero eta txikiago egin eta horretaz jabetzeko gai diren **espezialisten** ordua. Pello

Salaburu

Beharbada are hobeki gizakiei, haien gorputzak ez baitu inolako espezializaziorik, zaldien, txorien edo arrainenaren parekorik, eta, animalia-munduko **espezialisten** aldean, amateur hutsak baitira ia gizakumeak. Juan Garzia

3 irud/hed

-Ez kasurik egin -Mikel **espezialista** zen Jon lasaitzen-. Unai Iturriaga

4 (izenondo gisa)

Osakidetzan sendagile **espezialista** gehiago behar direla onartu zuen Gabriel Inclanek. Berria - Euskal Herria

Ni laboratorioan nintzen beste bi gatibu **espezialistarekin**, Greziatik erromatar aberatsek inportatzen zituzten esklabo eskolatuen antzeko baikinen. Juan Garzia

5 (hitz elkartuetan)

Espezialista titulu bi, master bat eta doktorego programa bi izango dira. Berria - Euskal Herria

Espezialista falta laster batean konpontzea espero du Inclanek. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi espezialista (3); **buruz buruko espezialista** (3); **da espezialista** (3); **erlojupekoetan espezialista** (3); **espezialista bat** (8); **espezialista batek** (4); **espezialista batengana** (6); **espezialista batengana joan** (4); **espezialista da** (9); **espezialista dela** (4); **espezialista direnen** (3); **espezialista eta** (3); **espezialista ez** (4); **espezialista onenak** (3); **espezialista zen** (3); **espezialistarengana jo** (3); **eta espezialista** (4)

---

espezialitate **1** *iz* zientzia edo ikerketa alor aski mugatu bati buruzko ezaguera sakonen multzoa.

Barazki zurituak ziren ama Chantemesseren **espezialitatea**. Karlos Zabala

Eta arlo hau zure **espezialitatea** da, ezta, Lupin? Iñaki Mendiguren

Oraingoan, ordea, bere **espezialitateko** kontua da: metrailadorea. Josu Zabaleta

Gainerakoan, bere **espezialitateko** estereotipoari dagozkion guztiak bete-betean konplitzen zituen: kalakari isilezina, bidaiari ipurtarina, gautxori nekaezina, edale zoroa eta emakumezale gogorra. Aingeru Epaltza

Berak prestatuko zidala egun batean bere herriko **espezialitatea** zen plater berezi bat. Joxemari Iturralde

Badakin, etxeko **espezialitatea**. Patxi Iturritegi

Baina kalabazinak dira zure sukaldeko **espezialitatea**, eta zergatik ez nauzu bihar afaltzera gonbidatzen? Joan Mari Irigoien

Iturriozek lana aurkitu zion; medikuntzako aldizkari baterako artikuluak eta liburuak itzultzea; aldizkariak **espezialitateei** buruzko lan berriak ere argitaratzen zituen. Josu Zabaleta

2 norbaitek bereziki prestaturiko jaki edo kidekoa edo bereziki eginiko lana.

Foulon gozogileak bere **espezialitate** ospetsuak ditu erakusgai: alegia, gurin lilaz eginiko pasteltxoak, kono itxurakoak, gainean azukrezko bioleta bana dutenak. Monika Etxebarria

Su eramangarriak eta uretan itzalezinak sortzea Hermioneren **espezialitatea** zen. Iñaki Mendiguren

Aleman hau ez zen bere agindupean armada oso bat eramateko bezain aberatsa, bere **espezialitatea** gehiago zen ingeniaritza eta ingeniaritzan maiz jende asko behar izaten da makinak egiteko. Jon Alonso

Batez ere idatziz gauzatzen den **espezialitate** batean oroimenak horrenbesteko garrantzia badu, areago izango du bertsolaritzan, ahoz eta bat-batean gauzatzen den zerbait izaki. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Komiki batetik biñeta bat ateratzeak (handitu eta irudi artistiko bat egiteko, Roy Lichtenstein-ek bere **espezialitate** bihurtu zuen bezala), irudi anizkun bat irudi bakar bihurtzen du, Josu Zabaleta

---

espezializatu, espezializa(tu), espezializatzen **1** da *ad* aritze esparru gisa espezialitate bat hartu; egiteko berezi batean aritu. ik **espezialdu**.

P.-H. de Valenciennes margolaria bizitik hartutako paisaia-ikuspegi txikitxo batzuk margotzen **espezializatu** zen 1780 aldera. Josu Zabaleta

3. irudian kortex-zelulek izan ditzaketen bestelako bi egitura ageri dira, argi-zirrikituak atzematen **espezializatua** bata eta marrak atzematen **espezializatua** bestea. Josu Zabaleta

Munduko Bankua, garapenaren finantzaketan **espezializatua**, zokoratua utzi zuen euromerkatuen goraldiak. Koro Navarro

Belgikako unibertsitario talde bat da, erretorikaren (hitzezko erretorikaren, eta, hemen, hitzezkoa ez den erretorikaren) azterketan **espezializatua**. Josu Zabaleta

Beren historiako krisi antzerako horietan juduek eta parsiek beren nortasuna gorde zuten erakunde berriak asmatuz eta jarduera berrietan **espezializatuz**. Iñaki Mendiguren

Aski izan bedi esatea zelula multzo batzuk, hasi erretinatik eta kortexeraino, kolorea pertzibitzen **espezializaturik** daudela, eta horixe da, hain zuzen, gure ikusmen munduaren oinarri-oinarrizko dimentsioetako bat. Josu Zabaleta

Joera honek indar handia hartu zuen garunaren egituraren ikerketak "oinarrizko" zenbait eginkizunetan **espezializatuta** zeuden zelulak, (ertzak, marrak, direkzio-mugimenduak, eta abar pertzibitzen **espezializatuak**) existitzen zirela frogatu zuenean. Josu Zabaleta

Alor honen ezagutzak aurreramendu handia izan zuen 1974an nerbio optikoan bi zelula mota zeudela aurkitu zenetik: zelula batzuk estimulazio-egoera iraunkorrei erantzuten **espezializatuak**, eta besteak estimulazio-egoera iragankorrei erantzuten **espezializatuak**. Josu Zabaleta

Zurgin lana; altzariak konpontzen **espezializatu** nintzen, zaharrak batez ere. Koro Navarro

2 (era burutua izenondo gisa) egiteko berezi batean aritzen dena.

Bizitza-forma orok (mikroorganismo **espezializatu** batzuk salbu) bi gauza behar ditu: elikagaia eta oxigenoa. Irene Aldasoro

Garuneko zelula **espezializatuek** kontrolatzen dute etengabe substantzia horrek odolean duen kontzentrazioa. Irene Aldasoro

Kontuan izanik dastamen-zelulek bizitza laburra dutela, harrigarria da ikustea nola haietariko askok eginkizun **espezializatuak** dituzten. Irene Aldasoro

Jakitearen sistema zuhaitz baten pareko ei da: metafisika da erroa, fisika enborra, adarrak zientzia **espezializatuak** (mekanika, fisiologia, psikologia) eta fruituak diziplina praktikoak (teknika, medizina, etika). Askoren artean

Gaiari buruz dagoen materialik berriena aurkitu nahi baduzu, hoberena aldizkari **espezializatuetara** jotzea da, batik bat ospe onekoak badira. Askoren artean

Tokia ezaguna nuen: erretegi arrandiatsu bat, landa-minaren aitzakian kanporatzen diren hiritarren sabelak betetzen **espezializatua**. Aingeru Epaltza

Etika-komiteek azpibatzorde **espezializatuak** sortuko dituzte. Juan Garzia

Trukeen eremua zabaltzeari esker haz daiteke ekonomiaren produktibitate globala, ogibideak eta jardueraren adar **espezializatuak** ugaltzen direlako ez ezik, enpresa barneko eginkizunak ere teknikoki banatzen direlako. Koro Navarro

Frantsesez "image" (´irudi´) hitzetik zuzenean eratorri den izenlagun bakarra "imaginaire" (irudimenezko) da, eta irudimenarekin lotzen duen zentzu **espezializatu** bat hartu du. Josu Zabaleta

Ikusmena prozesu bat da hain zuzen ere, eta hainbat organo **espezializatuz** baliatzen da. Josu Zabaleta

Muskulu oso **espezializatu** bat da bihotza. Irene Aldasoro

Larruazalak baditu, hala ere, nerbio-amaiera **espezializatuak**, oso tenperatura-aldaketa txikiak sumatzen dituztenak. Ikuspegi horretatik, bada, hurbilketa **espezializatuagoetarako** sarbidea baizik ez du izan nahi liburu honek. Irene Aldasoro

Adibide horrek oso argi ikusarazten du langile **espezializatuen** denbora osoko okupazioa ez dela errentagarria gertatzen, baldin salmenta kopuru jakin batetik gora ez bada. Koro Navarro

Tira bada, katolikoak politeistak direla esaten ari nintzen, santuak jarri zituzten jainko **espezializatuen** lekuan. Karlos Zabala

De Architectura ez da (edo ez esklusiboki behintzat) profesionalek erabiltzeko obra tekniko **espezializatua**. Santiago Iruretagoiena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldizkari espezializatu (6); **aldizkari espezializatuetan** (3); **dago espezializatua** (3); **denda espezializatuetan** (4); **espezializatu bat** (8); **espezializatu batean** (3); **espezializatu batzuk** (4); **espezializatu da** (4); **espezializatu nahi** (3); **espezializatu zen** (8); **espezializaturik dago** (3); **espezializatutako enpresa** (3); **horretan espezializatu** (3)

---

espezializazio *iz* espezializatzea; espelizatzearen ondorioa.

Espezializazioa lanaren nazioarteko banaketaren kontzeptuaren sorburuan dago; munduko baliabideen esleipena erabaki arrazionalen eta koordinatuen arabera egiten dela pentsaraztea da kontzeptu horren alde txar nagusia. Koro Navarro

Espezializazioa, teoria klasikoak azpimarratzen dituen baldintza estatikoetan baino areago (hornidura naturalak eta faktorezkoak), berrikuntzan oinarritzen da gaur. Koro Navarro

Sare horiek aldi berean daude, batetik, merkatu desberdinen arteko hazkunde-diferentzialen mende (konkurrentziaren printzipioa) eta, bestetik, beren ekoizpen-jarduerak kokatzeko enpresek abian jartzen dituzten estrategien mende (**espezializazioaren** printzipioa). Koro Navarro

XX. mendeak ikusi du **espezializazioaren** garapena, gure inguruko gauza guztiak gero eta txikiago egin eta horretaz jabetzeko gai diren espezialisten ordua. Pello Salaburu

Europako ekoizpenaren ezaugarri garrantzitsua izan zen garai hartan lurraldeen araberako **espezializaziorik** ez izatea. Koro Navarro

Produktibitatea, bestalde, eginkizunen **espezializaziotik** dator, **espezializazioari** esker aski denbora irabazten baita, eta makinak erabiltzen ahal baitira. Koro Navarro

Ez da ordea horretatik ondorioztatu behar **espezializazioak** eraginik ez duenik lpar-lpar trukeetan, ezta konkurrentziarik ez dagoenik lpar-Hego trukeetan ere. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eredu fordista nagusi izatetik, eredu post-fordista edo **espezializazio** malguaren eredua nagusi izatera pasatu gara. Iñaki Heras

Gauzak gehiegikeria apur batez azalduz, herrialde garatuen arteko truke industrialetan, nazioarteko **espezializazioa** aldez aurreko konkurrentzia guztiz aktibo baten emaitza baino ez dela esan daiteke. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan)

Lehengaien eskariaren (eta, hortaz, prezio erlatiboen) bilakaera kaltegarriak, epe luzera, **espezializazio** mota horretatik aldentzera eraman zuen, zein bere neurrian, herri ekoizle asko. Koro Navarro

· Ekonomi **espezializaziorako** ia misteriotsua den jarrera eta tradiziozko legea bere xehetasun txikienetan zehazki betetzea dira diasporaren bi baliabide nagusiak muga menderaezinen edo trebetasun militarraren ordezko artifizialak bere buruari emateko. Iñaki Mendiguren

---

espezialki *adlag* modu espezialean, bereziki.

Garai hartan, Proust, Sartre, Simone de Beauvoir, Marx, Freud... ikasten genituen, hezkuntza sexuala ere bagenuen, mediku bat **espezialki** etortzen zen klase osoarekin solas egitera arazo sexualez hitz egiteko: gorputzaz, harreman sexualez, pildoraz, abortuaz, eritasun sexualez... Ana Urkiza

---

espeziatsu *adlag* espezia ugari duena.

Usaimena, hala ere, ez dago guztiz garatua haurretan; horregatik ez dituzte nahi izaten haurrek, gehienetan, janari **espeziatsu** edo usaintsuak. Irene Aldasoro

Santik bere alboan etzaten uzten zidan egongelako besaulkian, eta sarritan pizza **espeziatsu** eskerga jaten genuen erdi bana telebistan gustuko saioak ikusi bitartean. Jon Arretxe

---

espezie *iz* izaki bizidunen taxonomian, generoaren azpiko saila.

Beharrezko mugimendu-konbinazioa ez zen lortu K.a. zazpigarren mende arte, nahiz eta ordurako *zibilizazio* deituriko gizarte- **espeziek** jadanik bazuten agian hiru mila urteko bizia. Iñaki Mendiguren

Lurra borobila dela edo **espezieek** eboluzionatzen dutela baieztatzea ez da enuntziatu bera Copernicoren aurretik eta ondoren, Darwinen aurretik eta ondoren. *Tetraodon nigroviridis* espezieko arrain baten genoma deskodetu du Frantziako ikertzaile talde batek, eta horri esker, **espezien** eboluzioaren inguruko gauza asko jakin dituztela esan dute. Xabier Arregi

Dagoeneko, bada, ezin zaie egitura proteikoen desberdintasunei egotzi, luzaroan egin den bezala, **espezieen** arteko formen eta jokaeren desberdintasuna. Juan Garzia

Ikerketa horren arabera, hegaztien gripearen birusa gizakiaren ohiko birusaz nahastu zen aurrena, eta, gero, gure **espeziera** egokitu zen. Berria - Gaiak

Sala hark, aldiz, ezkutuko mehatxua gordetzen zuen, zeren, paretetan hainbertze burezur zituela eta hainbertze **espezietarik**, nornahik pentsa baitzezakeen: [...]. Joan Mari Irigoien

Zenbait **espezietan**, saguzarrak multzo handitan biltzen dira negualdian (elkarri beroa emateko) eta ugalketarako moldaketa berezia izaten dute. J.M. Olaizola "Txiliku"

Galtzeko zorian diren espezieak salbatzeko gaur egun egiten diren ahaleginak **espezieetan** zentratzen dira, nahiz eta bistan izan kasu askotan espezieon bizilekua galtzeak eragiten duela arriskua. Berria - Gaiak

Berehala, han etorri zitzaion aingeru-arkitekto samalda bat, askotariko **espezietako** izaki bizidun, landare eta animaliak erakutsi beharrez, guztiak ere baitezpadakoak planeta berria aurrera aterako bazen. Juan Garzia

Badituk lehoi eta basoilarrak, eta baita beste hainbat animalia hango eta hemengo, larrialdietan beren espeziekoei eta are beste **espezieetakoei** laguntzen saiatzen direnak: neuk ikusi izan ditiat. Xabier Olarra

Ez dira, bada, gene eragileak soilik -hots, egituren eta kimika zelularraren materiala determinatzen duten geneak- **espeziez** espezie beren horretan dirautenak eboluzioan zehar. Juan Garzia

'Eta hemengo faunako ze **espezietakoa** zara zu?' galdetuko dizu belarrira. Joseba Sarrionandia

Banako ni hauxe zer naizen alegia, ez zer-nolakoa edo zein **espezietakoa** (gizon, euskaldun: errepresentazio kontzeptualak, "artekoak", subjektu ezagutzaile eta ezagutzako objektuaren artean). Askoren artean

Egun soilik 12 landare eta 14 abere **espezietatik** ateratzen da munduko janarik gehiena. Berria - Gaiak

Espezie bakoitzak bere usaina dauka, beste **espezieetatik** bereizten duena. Luis Elberdin

Horrek itsas **espeziei** kalte handia eragin diezaiekela ohartarazi dute zientzialariek. Berria - Gaiak

ICESek 135 arrain eta itsaski **espeziei** egiten die jarraipena. Berria - Mundua

---

espezieka *adlag* espezieen arabera.

Itsaso eta mendi eta ibai oldartsuetan, hegaztien etxe hostotsu eta zelai berdetsuetan zehar, bular guztietan maitasun biguna sartuz, belaunaldiak joranez ugalarazten dituzu, **espezieka**. Xabier Amuriza

Gure ikusmenak hauteman ditzake batzuk fruituetan eta animalietan; beste batzuk ezkutuan daude, haien hazien hazi baitira; eta horrela, Sortzailearen aginduetara urak

arrainak eta hegaztiak sortu zituen, eta lurrak lehenengo kimuak **espezieka** eta lehenengo animaliak generoka. Imanol Unzurrunzaga

---

espeziero *iz* espezie saltzailea.

Erdi Aroan, inolako araudirik ez izatean, **espezieroak**, botikeroak, herbolarioak, perfumegileak, argizarigileak eta konfiteroak elkarrekin nahaste samar ageri dira, harako Xenpelarren bertso aldrebes sonatu hartan bezala. Patziku Perurena

---

espezifikatu, espezifika(tu), espezifikatzen du *ad* zehazki adierazi.

Horrelako kasuei egiaren kontzepzio semantikoa aplikatzeko, beharrezkoa litzateke hizkuntza naturala bere egitura zehazki **espezifikatuta** lukeen beste hizkuntza batekin ordezkatzea, horrela arazoari hala-holako ebazpena emateko. Askoren artean

Bere galdekizunak ez ditut sahiestu giza arrazoimenaren ahalmen eza aitzakiatzat hartuz; aitzitik, haiek printzipioen arabera konplituki **espezifikatu** ditut eta, arrazoimenak bere buruarekin zuen gaizki-ulertzearen gunea aurkitu ondoren, bere gogobete osorako konpondu ditut. Ibon Uribarri

Eszena antolatu baino lehen elementuek (oraindik edozein direnean, **espezifikatu** gabe daudenean) duten garrantzia, nagusitasuna aipatzen du batez ere Deleuzek zinemari buruz, eta gauza bera esan daiteke irudiaren izateko modu guztiez ere. Josu Zabaleta

---

espezifikazio *iz* espezifikatzea.

Egunkarietako laugarren orrialdeko **espezifikazioak** egiazko sendagaiaren aldean bezalaxe zen hura filosofiaren aldean. Josu Zabaleta

Bera inskribatzen da, hasiera hasieratik, jardute ezberdinen arloan, non berak aurkitzen duen, aldi berean, bere **espezifikazioa**, bere funtzioa eta bere mendetasunen sarea. Xabier Arregi

Agerpenak bere determinazio osoan ezagutzeak [...] bere adigaien etenik gabeko **espezifikazio** jarraitua eta oraindik geratzen diren ezberdintasunetarantz doan aurrerabidea eskatzen ditu. Ibon Uribarri

Espezie bakoitzak azpi-espezieak barnebiltzen ditu **espezifikazioaren** printzipioaren arabera, eta ikusmuga logikoa ikusmuga txikiagoez soilik osatzen da. Ibon Uribarri

Erraz ikusten da lege logiko hau ere zentzurik eta aplikaziorik gabea izango litzatekeela oinarrian **espezifikazioaren** lege transzendentalik ez balu. Ibon Uribarri

Homogeneotasun, **espezifikazio** eta formen kontinuitatearen printzipioak. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **espezifikazioaren lege** (4)

---

espezifiko 1 *izond* zehatza, berariazkoa.

Nork esango zuen 1850ean, Pasteur-en eta Koch-en aurretik, eritasun kutsakorrak, azken batean, germen **espezifiko** batzuen erasotik zetozela? Juan Garzia

Kasu guztietan, erreakzio-kate linealak ditugu, hots, sekuentzia batzuk, non urrats bakoitza entzima **espezifiko** batek katalizatzen baitu. Juan Garzia

Sistema horren eginkizuna, beraz, ez da egitura **espezifikoak** finkatzea, baizik eta kokapen erlatiboak, koordinatu-ardatzak markatzea, zelulentzat, organismoaren baitan. Juan Garzia

Hala ere, teoriaren eta errealitatearen arteko auzi horren inguruan badaude beste arazo **espezifiko** batzuk. Askoren artean

Segmentu bakoitza, lurralde bakoitza, lurraldeko zelula bakoitzean paraleloan diharduten hainbat homeogeneren konbinazio **espezifiko** batek determinatua da. Juan Garzia

Entzima horiek guztiz ere **espezifikoak** ziren: bakoitzak ADN sekuentzia labur jakin bat ezagutzen zuen. Juan Garzia

Arau-multzo hauek nahikoa **espezifikoak** dira esparru hauetako bakoitzean eta euretan formazio diskurtsibo bereziak eta banakakoak ezaugarritzen dituzte. Xabier Arregi

Kontzeptuak eratzeko arau **espezifikoen** bidez. Xabier Arregi

Garuneko beste alde batzuetako lesioek beste nahasmendu batzuk sor ditzakete sentimen nahiz mugimenean, mintzamenean nahiz pertzepzio-, ezagumen- edo oroimen-funtzio **espezifikoetan**. Xabier Olarra

Balioak eta arauak, printzipio epistemologikoak eta metodologikoak, ez dira zentzu absolutuan ulertzen, testuinguru **espezifikoetan** baizik. Askoren artean

Bakoitza erabiliz, modu **espezifikoagoan** hel diezaiekegu garapenaren zenbait alderdiri. Juan Garzia

Giza gorputzaren grabitate **espezifikoa**, ohiko egoeran, gorputz horrek kanporatzen duen ur bolumenarena adinakoa izaten da gutxi-asko. Koro Navarro

2 *pisu espezifiko* gorputz baten pisua bolumen unitateko.

Material baten **pisu espezifikoa** balantzarik gabe kalkulatzea ez da noski gauza erraza. Juan Garzia

Nire asmoa ez da hemen inolaz ere hau benetan materien ezberdintasunei **pisu espezifikoaren** arabera gertatzen zaienik baieztatzea. Ibon Uribarri

3 *bero espezifiko* gorputz bati eman behar zaion bero kantitatea bere tenperatura gradu bat igo dadin.

Gramoko 0,24 kaloria da airearen **bero espezifikoa**: balio apal samarra. Irene Aldasoro

Uraren **bero espezifikoa** (hau da, uraren tenperatura gradu bat igotzeko behar den beroa) gramoko kaloria bat da: oso balio altua, amoniakoak beste ezein likidok gainditzen ez duena. Irene Aldasoro

Urak **bero espezifiko** altua duenez, kopuru txiki batek nahikoa bero gordetzen du; arnasbideetako barne-estaldura hezea berogordailu bikaina da, beraz, sartzen eta irteten den airearentzat. Irene Aldasoro

Odolaren % 80 ura da, eta ura ingurune ona da hozteko edo berotzeko, **bero espezifiko** altua baitu: beste likido arrunt eta kaltegabe guztiek baino altuagoa. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bero espezifiko altua** (3); **espezifiko batzuk** (3); **espezifiko eta** (3); **grabitate espezifikoa** (5)

---

espezifikoki *adlag* era espezifikoan.

Hasieran berdin-petoak dira moduluok, baina aurki doaz **espezifikoki** desberdinduz, multzo bereziak osatzen dituzten gene erregulatzaileen eraginpean. Juan Garzia

Gazteek **espezifikoki** jasaten duten egoera dela-eta, kanpaina bat jarri dute abian LABek, Duinak eta Gazte Plataformak. Berria - Ekonomia

Guri errealitateak ez zaizkigulako **espezifikoki** ematen. Ibon Uribarri

Vitruvioren tratatuak sintesi guztiz pertsonala egiten du afan kulturalista orokorren eta diskurtso tekniko eta **espezifikoki** profesionalak bilduz. Santiago Iruretagoiena

Katalunian epaileek katalanez jakitea «**espezifikoki** eta bereziki» baloratuko da. Berria - Mundua

ADNaren kate osagarri biek elkar ezagutzeko eta **espezifikoki** elkarrekin uztartzeko duten gaitasunari esker, erraz samarra da aztertzea, organismoak guztira daukan ADNaren artean, ea baden generik gene ezagun baten antza duenik. Juan Garzia

---

espezifikotasun *iz* espezifikoa denaren nolakotasuna.

Horrelako "estetika" bat, ahal den **espezifikotasun** gutxien duena, pinturarako bezala musikarako ere berdin balioko duena, ezin izan daiteke historian zehar izan diren estetika desberdinen azterketa bat, ez, a fortiori, estetika arauemaile bat. Josu Zabaleta

Horrelako "estetika" bat, ahal den **espezifikotasun** gutxien duena, pinturarako bezala musikarako ere berdin balioko duena, ezin izan daiteke historian zehar izan diren estetika desberdinen azterketa bat, ez, a fortiori, estetika arauemaile bat. Josu Zabaleta

Jardute diskurtsiboen **espezifikotasun** berezia definitzea. Xabier Arregi

Bera ahalegintzen da erakusten diskurtsoaren autonomiak eta **espezifikotasunak** ez diola ematen diskurtso horri idealtasun hutsaren estatusa ezta erabateko independentzia historikoaren estatusa ere. Xabier Arregi

Orain dela bi mendetatik hona irudi automatikoan, argazkian, zineman, bideoan oinarritzen diren arte-jarduera berriak sortu direlarik, berriro piztu da, behin eta berriro, **espezifikotasunaren** auzia. Josu Zabaleta

Zinez interesgarria da ikustea nola antzerkiko kontzeptuetan bertan bilatu zen, berrogeita hamar ondoko urteetan batez ere, zinematografiaren **espezifikotasunaren** definizioa Nagusiki objektu hauen eraketa deskribatu behar zen, diskurtso psikiatrikoaren osotasuna mugatzeko bere **espezifikotasunean**. Josu Zabaleta

Errealismoaren aurrez aurre, zeinentzat gauzen izate zinezko eta egiazkoa unibertsaltasunean eta **espezifikotasunean** oinarritzen baita eta giza pentsamenduarentzat kontzeptu unibertsaletan bihurtzen baita atzemangarri, nominalismoa sortu zen pixkanaka lurra janez. Joan Mari Lekuona

---

espezimen *iz* bere espezieko ordezkaritzat hartzen den zera.

Espezimen hau Zooan hazia da. Iñaki Mendiguren

Hizkuntzan ezer abstraktorik ez dagoenez, mota horiek existitzen dira soil-soilik, hizkuntzak bildu dituen sintagma mota horien **espezimenen** kopurua nahikoa denean. Isabel Arrigain

Gizon nordikoaren **espezimen** bikain horren fisikoaren deskribapen zehatzari [...] hasieran Anak goraipamen eskuzabala egiten dio. Iñaki Mendiguren

Geratzen den **espezimen** bakarra Gizarte Arabikoa da, erakunde nomada bizkarroi baten zamak suntsitu zezakeena nomada ez zen mundu batean. Iñaki Mendiguren

Pérez izatea ezin onartzetik euskal atso guziek nahiko luketen suhia izatera pasa den **espezimen** eredugarria, dioen guziari soltura faltsu, errepelente eta beratza kutsatzen diona. Patziku Perurena

---

espia *(ETCn **336** agerraldi)* **1** *iz* espioia.

Iman batek nola, Parisek hala erakartzen zuen nabarmentzen zen jende oro: artistak eta bankariak, gaizkileak eta negozio-jendea, puta-zorriak eta **espiak**. Anjel Lertxundi

Bazuten zapata-garbitzaile haiek profetikotik zerbait, misio baten zain dauden **espiak** edo jainkoek bidalitako ordezkariak ziruditen. Harkaitz Cano

Ez zuen polizia edo **espia** baten aparteko itxurarik, baina espiei ez baitzaie zer diren nabaritu behar, ez nengoen eroso. Anjel Lertxundi

Bost axola niri **espia** izate doilor honetara behartu nauen herri barbaro hori. Juan Garzia

Colganen **espia** dela esango nuke nik. Irene Aldasoro

-Ni **espia**? Zerena? Norena? Jon Arretxe

IMCk ezkerreko poltsikotik ateratzen du informazioa, era sentsazionalistan hitz eginez, IRAk gobernuaren erakundeetan **espiak** dituela dioenean. Berria - Mundua

Zumalakarregi generalak **espiak** nahasteko erabiltzen zituen trikimailuak. Berria - Kultura

Kontroletako batean, soldadu-buruak, higanota baita, **espiatzat** jo du Garibai. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Kim Philby sobietar **espia** ospetsua Gernikan izan zen, hara! -esan zuen bisitariak. Edorta Jimenez

Horrako gizon hori, pentsatu nuen, Okhranako funtzionarioa izana da eta Parisen **espia** komunistaren bat garbitu du. Matías Múgica

Kosta egiten zitzaidan neure buruari sinistaraztea nire bizitza bizitza galdua zela, gezur bat; nire izena, mailegatua, lapurtua; nire pasaportea, **espia** nazkagarri baten agiri nazkagarria. Matías Múgica

Espia hutsa zen abade hura, Donostiako Maria Cristina hotelean matxinatu zirenen artean egon zen, tiroka ikusi zuten leihoan. Koldo Izagirre

Meza hasita zegoen eta arreba konturatzerako alde egin zuen Lucasek, jatorri errusiarreko **espia** ingeles baten zuhurtziaz eta jatorri etiopiarreko ostruka frantses baten arintasunaz. Unai Elorriaga

Hans Rabener prusiar **espiak** (alias Viktor Runeberg) pistola automatiko batez eraso zion atxilotzeko ordena zekarkion Richard Madden kapitainari. Juan Garzia

Jaso eta lumatu genuenean, deskubritu genuen zer mekaniko bat zela, **espia** begiluze halako bat, bere argazki kamera edo satelite digital eta guzti. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Are okerragoak ere badaude: hainbatek **espia**-lanak egiten ditu Buruzagiarentzat eta haren Gizonentzat. Agustin Otsoa

Sedukzioaren printzeak urte asko egin ditu bere hiritik urruti, ia Europako gorte guztietan baliatu ditu bere **espia**-dohainak guztizko luxu baten truke. Anjel Lertxundi

Sareak hedatu zituen eta eskuzabal banatu zuen diru asko, Kosmasen galbiderako, Markoren ibilbideen berri emango zioten **espia** mordo bat erosteko. Felipe Juaristi

Izan zuen ondorio bakarra, mende horretako **espia** liburu eta pelikula onenetakoen iturri oparoa izan zela. Pello Salaburu

Espia-giro gehiegizkoa, nire gusturako ere. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espia bat (4)

---

espiatu, espìa(tu), espiatzen du *ad* norbaiti edo zerbaiti ezkutuan begira egon, egiten duenaz jabetzeko eta eskuarki beste bati horren berri emateko. ik **zelatatu; barrandatu**.

-Zaintzen... **espiatzen**... guri jarraitzen agian -esan zuen osaba Vernonek, amorruz marmar eginez. Iñaki Mendiguren

Munduan izan litekeen emakumerik begiluzeena zen eta denbora gehiena auzokoak, aspergarri eta lege-zale hutsak zirenak, **espiatzen** ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Ez da hau taberna honetatik **espiatzen** duzun lehenbiziko aldia, hemendik edo Plaza Biribilatik, edo tren geltokitik. Sonia Gonzalez

Sedanok, noski, susmo txarra hartu zuen, eta Cesid-ekoak **espiatzen** ari zitzaizkigulakoan, polimili izandako bezero batekin etorri zitzaidan, etxea mikrofono ezkutuen bila miatzeko. Ramon Saizarbitoria

Herrikideak **espiatu** beharra gogor egiten zaie antifaxista direnei. Edorta Jimenez

Ingelesek bidali naute zu **espiatzera**. Alberto Ladron Arana

Guk, ofiziokook, mesprezuz aditzen genituen huskeria haiek, baina adi egoten, halere, **espiatzeko** ohitura ezin utziz. Matías Múgica

Ezer egin gabe eman zuen arratsalde osoa, noiz aldizkari zaharren bat irakurtzen, noiz Carlton hoteleko bezeroen joan-etorria **espiatzen** gortinarik gabeko leihate zabaletik. Patxi Iturritegi

Etxeko pasilloan gurutzatzen ginen behin eta berriz burumakur, elkarri begiratu gabe, elkarren zelatari, zoritxarreko egin gintuen egoerari irtenbiderik aurkitzeko asmorik gabe, mendeku makurrenetan pentsatzen, batak bestearen aurrerapenak eta etenaldiak **espiatzen** genituela. aBart arratsean beste denbora-pasa bat aurkitu nuen: kataleju batez beste etxeetako bizilagunen gela ongi argituak **espiatzea**. Joxean Agirre

-Nola dakizu hori? Zerraila zulotik **espiatzen** egon zara! Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espiatzen ari (4)

espiatze *iz* norbaiti edo zerbaiti ezkutuan begira egotea, egiten duenaz jabetzeko eta eskuarki beste bati horren berri emateko.

Ustezko **espiatze** jarduera hauek Ipar Irlandako Legebiltzarraren egoitza den Stormonteko jauregian burutu ei ziren. Berria - Mundua

Irlanda iparraldeko autonomia estatutua eten zuen Londresek, Erresuma Batuaren baitan geratzearen alde diren indar unionistek IRA Irlandako Armada Errepublikanoaren **espiatze** jokaerak salatzearen ondorioz. Berria - Mundua

1999: DST Frantziako kontra-**espiatze** egiturak Jihad Islamikoa erakundeko ustezko kidetzat sailkatu zuen. Berria - Mundua

---

espiazio *(orobat **espiazione**) iz* zigortua izatea delitu edo hutsegite batengatik.

Hemen **espiazioko** opari egin zuen eta ezkutuan gorde zuen, Argostik etorri zenean Arkadia garratzaren mendietara. Ezin atsegin handiagoz adituko nuke, baina, Napolitik pelegrinazionean jalgi nintzenean, Jainkoari hitz eman nion ezen, neure bekatuen **espiazionean**, atseginari uko egiten dion atseginaren gibeletik ibiliko nintzela, zeren eta Jainkoak atseginago baitu. Santiago Iruretagoiena

---

espiga *iz* buruxka formako marrazkia.

Espigazko traje gris perla sobrioa zeraman, eta ile gominaztatuan tangero itxura ematen zioten onda batzuk zituen eginak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

espigoi *iz* portu bat batesteko edo ibai baten ibilbidea bideratzeko eraikitzen den murru irtena edo horma lodia.

Hondarrean zeutzan arrantza-ontziak, **espigoiaren** oinetan, hura olatuetatik babestearren nahas-mahasean botatako eta tarteetan bor-bor hotsez beteriko harrizko kubo likatsuetatik ez urruti. Monika Etxebarria

---

espiker *iz* esataria.

Kirol berri eta teknika ederren garai berekoa delako esan ohi zaio irrati edota telebistako esatariari **espikerra**. Iñigo Aranbarri

Bosgarren Kolumna, irratia eta **espikerra**; ederra egin dute, bai, Madrilgo Eusko Zerbitzuek. Edorta Jimenez

Kirol berri eta teknika ederren garai berekoa delako esan ohi zaio irrati edota telebistako esatariari **espikerra**.Enbaxadako ganbara batean irrati-aparailu bat topatu dutela, bosgarren kolumnakoek erabiltzen izan duten aparailua; baina irratiko **espikerrik** ez dutela topatu, hegan egin duelako. Iñigo Aranbarri

---

espinaka *iz* belar landarea, hosto bigun berde-berdeak dituena, barazki gisa ereiten dena *(Spinacia oleracea)*. ik **ziazerba**.

Aldi batean eskarola baizik ez genuen jateko: eskarola harearekin, harearik gabe, patata purearekin, hutsik edo eltzekoan; geroztik **espinakak**, arbi-azak, terebuzak, luzokerrak, tomateak, xukruta, eta abar. Josu Zabaleta

Zerba, **espinaka** eta txikoriaren oihartzuna uzten dute ahosabaian. Joxerra Garzia

Egunero-egunero **espinaka** erdi-egosiak (bitaminak ez omen dira galdu behar eta) eta patata ustelak baizik jaten ez badugu; gure urdail hutsetan letxua entsaladan, eta letxua egosia, **espinakak**, eta berriro **espinakak** baizik jaten ez badugu. Josu Zabaleta

Igandero aldatuko duzue etxe batetik bestera eta txandaka zainduko duzue, eta bazkatzen emango diozue, **espinakak** eta lekak. Unai Elorriaga

Haurra oheratu ondoren emazteak untxia **espinakekin** atera zigun. Joseba Urteaga

Emakumea erdi etzanda zegoen, gozo-gozo, arrautza egosi bat **espinaka**-platerkada batean bezala. Lopez de Arana

Ziazerba edo **espinaka** potoa ere bada aberria, Patri, ezen hainbeste zorigaitzi aurre egiteko beharko baitugu zerbait, munduaz gain, eguraldia ere kontra jarri zaigun honetan. Hasier Etxeberria

---

espineta *iz* musika tresna tekladuna, nota bakoitzeko hari bakarra duena.

Parisetik eta Vienatik etortzen ziren, altzari, zeta, oihal, grabatuz kargaturik, behin **espineta** bat ere ekarri zuten: emakumeak musikaz etxaberetu nahi zituen animalia basatiak. Xabier Olarra

---

espingarda *iz* oso kanoi luzeko eskopeta, musulmanek erabiltzen zutena.

Al-Fayoumgo erdialdean zegoen karpa handiaren ingurura heldu zirenean zimitarrak eta **espingardak** atera zituzten. Xabier Aranburu

Bazegoen emakumerik, haurrik, baita gerrian ezpatak eta bizkarrean **espingardak** zeramatzaten hainbat gizon ere. Xabier Aranburu

---

espioi *(ETCn **1.606** agerraldi)* **1** *iz* estatu arrotz bati buruzko isilpeko argibideak lortzeko egitekoa duen pertsona. ik**espia**.

Ramírez kapitaina ez zen beraz, zehazki, **espioia**, informatzailea baizik. Fernando Morillo

Espioiek diote galiziarrak hamabi mila soldadu baizik ez dituela, ez da nahikoa hiria inguratu eta setioa estutzeko. Jon Alonso

Nobeletako **espioiek** ez zuten negar egiten Wagnerren obertura bat entzunda. Alberto Ladron Arana

-Errusiarren **espioia** -esan zuen Feofar Khanek-, tatariarren kanpamentuan zer gertatzen den ikusteko asmoz etorri haiz! Karlos Zabala

Jesuitaz jantzitako **espioi** bat. Felipe Juaristi

Bata zein bestea, Anne eta María, **espioitzat** jo eta heriotzara kondenatu zituzten, alegia monsieur Guillotin gizon onbera, errukior eta eskuzabalaren ahalmena frogatzera. Felipe Juaristi

Ez zuten, bada, **espioitzat** hartu, eta haren ingurukoak lasai mintzatzen ziren batere errezelorik gabe, eskuarki ohi zutena baino urrunago ere joanez. Karlos Zabala

Hirugarren mailako **espioia** baino ez zara. Jon Alonso

Ni, Voldemorten **espioi**? Iñaki Mendiguren

2 (izenondoekin)

Sarea-ren zereginetako bat, nagusienetakoa, **espioi** nazi, faxista eta halakoen ibilerei begirik ez kentzea delako. Edorta Jimenez

Clooneyren lana gutxietsi gabe, bikain jokatzen baitu **espioi** etsiaren rola, ez da harritzekoa Oscar saria hari eman izana. Berria - Kultura

Ahernek onartu du berak eta Blairrek zailtasun frankori egin beharko dizkiotela aurre beren egitasmoa gauzatzeko, eta Denis Donaldson Sinn Feineko kide eta britainiarren **espioi** ohiaren hilketak bidea are zailago egiten duela esan dute. Berria - Mundua

Izan ere, **espioirik** hoberena bidali zuten Alemaniara: nor eta espiatu beharreko gizonaren semea bera. Alberto Ladron Arana

Nire aukera bakarra zera zen, pertsona arruntak bezala jokatzea, ez **espioi** zaildu baten antzera. Alberto Ladron Arana

Ustezko **espioiek** Londresen manipulazioa salatu dute. Berria - Mundua

Espioi ustezkotzat hartu zutelako sartu baitzuten San Markoko ziegetan, 36ko gerra bukatu eta hiruzpalau urtera, makisen garaian. Joan Mari Irigoien

3 (adizlagun gisa)

Espioi ibiliko naun! Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zer uste duk, bada, ene **espioi** sareak ez duela funtzionatzen? Joan Mari Irigoien

Inoiz ez zen **espioi** sarerik izan Stormonten. Berria - Mundua

Herrialde anitzetako agente sekretuak, **espioiak** eta **espioi**-ehiztariak, era guztietako isil-mandatariak, ekintzaileak, iheslariak, soldadu ohiak eta soldadu izatea amesten zutenak... guztiak koktel lehergarri batean. Alberto Ladron Arana

Ez naiz hasiko jasotzen Txikiaren militante-bizitzako pasadizo zirraragarrienak, **espioi**-film batetik atereak diruditenak: ekintzak, tiroketak, segadak, ihesak. Xabier Mendiguren Elizegi

Agintean lau urte eman dituen arren, bere **espioi** iraganari ohore egin eta 007 agente sekretua izaten jarraitzen du askorentzat Putinek. Berria - Mundua

Gainera, batez ere **espioi** eleberria denez, ez da suspentserik falta. Berria - Kultura

Pentsatu nuen segur aski nik egin beharreko lana **espioi**-nobeletakoa baino askoz ere ilunagoa izanen zela. Alberto Ladron Arana

Borges munduko **espioi** agentzia guztietako agente guztien helburua da; horrek bere baitan hartzen ditu, noski, Roger Bazofias eta bere agentzia. Jon Alonso

Hala segituz gero kasutik apartatu ez ezik, **espioi**-karneta ere kenaraziko zidala. Jon Alonso

Ordura arteko guztiez ez bezala, ohiko **espioi**-uniformea ez eta lihozko atorra eta praka zuriak janzten zituen. Jon Alonso

Ez, toki hark ez zuen **espioi**-habia baten itxurarik batere. Alberto Ladron Arana

Idoiari ez nion erakutsi nahi nire **espioi**-jokabidea, harik eta zerbait sendoa aurkitu arte behintzat. Hire fitxa egiteko nahiko ditiztek, edo, auskalo, orain **espioi** lanetan arituko haizenez, nortasun agiri faltsuak egiteko. Juan Kruz Igerabide

Espioi lanbidearen alderdi makurrak ziren haiek. Alberto Ladron Arana

Ahaztuak zeuzkan Martinek bere arrisku guztiak; etxera joan, eta, **espioi**-kontuetan batere pentsatu gabe, Bautista ikustera sartu eta pozez gainezka besarkatu zuen. Koro Navarro

Bestalde, seguru nago bai Intelligence Servicek bai Deuxième Bureauk **espioi** mordoa daukatela Reich-en sartuta. Alberto Ladron Arana

Jabaliak dozenaka tanke eta buldozerren erasoa jasan du, airetik **espioi** hegazkinek eta Apache helikopteroek lagunduta. Berria - Mundua

5 irud/hed

Hasi beharra dago hitzen ere **espioia** izaten. Anjel Lertxundi

Ariane kohetea jaurti dute, Frantziaren satelite **espioia** orbitara eramateko. Berria - Gaiak

Aukera polita, inondik ere, konpainia multinazionalek gure hozkailuko ordenagailuan birus **espioiak** sartu eta, deskuiduan, margarinaz bete diezaguten. Edorta Agirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

britainiarren espioi (4); **ciako espioi** (6); **ciako espioi baten** (5); **edo espioi** (3); **espioi bat** (7); **espioi baten** (5); **espioi baten izena** (4); **espioi eleberri** (4); **espioi eleberria** (3); **espioi gisa** (3); **espioi israeldar** (3); **espioi lanetan** (7); **espioi ohia** (3); **espioia izatea** (3); **espioia nintzela** (3); **espioia zela** (8); **espioitzat hartu** (4); **eta britainiarren espioi** (4); **eta espioi** (3); **ustezko espioi** (5); **zuen espioia** (3)

---

espioitza *iz* espiatzea; espioiaren jarduera.

Honez gero badakite hirian gurutzatuak abiatzekotan daudela, **espiotza** ez da gerra modernoen asmaketa bat. Jon Alonso

Estatu espainolak Kataluniako eta Euskal Herriko abertzaleen kontra salbuespen egoera ezarri du, tinkoa bazara salbuespen egoera, atxiloketa, **espiotza** jasotzeko edo legez kanpo geratzeko arriskua duzu. Berria - Euskal Herria

Horren harira, argazkiak ikuskatzen ofizialek egin zuten lana aldarrikatu nahi izan du: «**espiotzaren** talderik ahantziena osatzen baitute». Berria - Kultura

Horregatik, **espiotza** aferak agertzen direnean, etsaia identifikatzea esanguratsua da oso. Berria - Euskal Herria

---

espiral **1** *iz* lerro kurboa, puntu baten inguruan birak egiten dituena, puntu hartatik erregulartasunez urrunduz. ik**kiribil**.

Ordaindu beharrekoaren papertxoa hartu, eta **espiral** bat marraztu zuen Jonathanek. Jon Muñoz

Haren gainean, ganga esferiko argitu bat buru zuela, **espiral** baten tankerako frisoa, hainbat itzuli egiten zituena. Jon Muñoz

Era horretako beste esperimentu harrigarri bat diskojogailu batean **espiral** bat duen kartoi bat jarri eta hari begiratzea da: diskojogailuaren platera biraka ari den bitartean, itxurazko estutze edo zabaltze mugimendu bat sumatzen da, **espiralaren** zentzuaren arabera. Josu Zabaleta

Aingira, ukitzen zutela sentitu bezain laster, kiribildu egiten zen bere baitan, korapilo arinetan, aska mehar hura bere **espiralen** kolore berde distiratsuez betetzen zuela. Karlos Zabala

Beldurra askotan **espiral** bat da, zabaldu egiten da **espiralaren** jatorri zehazgabetik. Harkaitz Cano

Presio baxuen ardatzaren inguruan, haize beroak, zikloi eremu batean, **espiral** baten gisara ezkerreko alderuntz goraka aldegiten zuela. Pello Zabala

Debekatuta dago -hau, bai, esplizitoki-, aldi berean, **espiraletan** jardutea edo espiralki jokatzea. Karlos Linazasoro

Haien oskoletako **espiralen** ederrari begira gozatu ginen. Harkaitz Cano

Hortik pasatzen da **espiralezko** eskailera, amilean nahiz goraka urrunean galduz. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euliak igandea zela ohartu gabe eta paper zintzilikatuen beldurrik gabe ari ziren, burrunbari, batak bestea jo eta oso bizkor bereiziz, bata gora **espiral** zoroan, bestea kolpearen puntura bueltaka behin eta berriro, imandurik balego bezalako zorabioan. Joseba Sarrionandia

Nazgûlak, minduta, garrasi luzea egin eta urrundu egin zen; beste lauak, ezbaian ibili ondoren, **espiral** zorabiagarrietan gora joan ziren ekialderantz, hodei baxuen artean desagertuz. Agustin Otsoa

'Arren eskatzen dizut' gehitu du lerroaren gainean, eta **espiral** bitxi batez lotu du 'ikustera' hitzarekin. Monika Etxebarria

Espiral logaritmikoa! Jon Muñoz

Azalean lau beso biribilen zeltiar **espirala** zeukan grabatuta, bere klanaren sinboloa. Joanes Urkixo

3 (hitz elkartuetan)

Espiral formako begiradak, joanekoak, joan-etorrikoak. Harkaitz Cano

4 (izenondo gisa)

Gailuaren orratzak diskoko ildo **espiralean** grabaturiko gorabeheretan aurrera egin ahala, korronte elektriko bihurtzen dira orratzari eragiten zaizkion presio-aldaketak. Irene Aldasoro

Marteren inguruan egunean hirutan orbitatzen du, eta bere orbita **espirala** da, beraz, azkenean, Marteren azaleran deuseztuko da. Berria - Gaiak

Figura eliptiko eta **espiralak** izango ditu Serraren obrak, altzairuz eginak eta lau metroko altuerakoak. Berria - Kultura

5 irud/hed

Horrek guztiak azken bolada honetan hedabideetan erruz topatzen dugunarekin zerikusia duela nabarmendu du, hots, «biolentziaren **espirala** deritzona» dakarrela askotan. Berria - Euskal Herria

Hezur hauskorrak mailadien kontra xehe-xehe eginda uzteko arriskuarekin, almuedanoak ziztu bizian jaisten du **espiral** estua, eta behera iristen delarik zorabioak jota erortzen da. Jon Alonso

Izu-ikarazko **espiral** batean jausi naiz, amesgaizto paranoikoan. Praktikan ordea, indexazio-mekanismoek eragindako prezio-soldaten **espiralak**, inflazioaren gorakada izugarria ekarri zuen herrialde industrializatuetan. Patxi Iturritegi

Bart piztu behar zuen berriz motor esperimentala, lau egunez, sateliterantz **espiralak** eginez hurbiltzeko. Berria - Gaiak

Jose Maria Pastorrek esan zuen Egunkaria beti agertu zela indarkeriaren **espiraletik** ateratzeko irtenbideen alde. Berria - Euskal Herria

6 ***espiralean*** *adlag* ik **espiralki**.

Espiralean engainatu zuen Veronicak Alain ere. Harkaitz Cano

Itaunketek, kriminalisten arabera, **espiralean** garatu behar dute gertakizuna, nolabait esateko, baina sekula ez zuzen-zuzenean. Juan Martin Elexpuru

Madeleinek fonografoaren platerean utziko du, biraka hasiko da; altzairuzko orratza saltoka eta kirrinka hasiko da ildoetan, eta ondoren ildoek, **espiralean**, diskoaren erdiraino behin eramanarazirik. Monika Etxebarria

Bere eskuineko eskua arabeskoak eginez zerutik jaisten ikusi nuen, tiroak jotako hegaztia bezala, **espiralean**. Joxean Agirre

Biak hala biak berpiztea islatzen duten landareak dira, kiribilka **espiralean** aihenatzen direlako. Pello Zabala

---

espiralki *adlag* espiralean.

Praktikan, baina, **espiralki** jokatzea guztiz debekatuta dago, non edo non -ez gaur, ez hemen-, mugimendu horren aurrean itsuarena egiteko joera ikusi bada ere. Karlos Linazasoro

Debekatuta dago -hau, bai, esplizitoki-, aldi berean, espiraletan jardutea edo **espiralki** jokatzea. Karlos Linazasoro

---

espiralkoi *izond* espiral formakoa.

Zirimola **espiralkoia** jaisten eta hodeiaren gorputz malgua berarekin arrastatzen baitu; eta hodei kargatua itsasoaren azalera jaurtiz batera, bat-batean bera ere osorik uretara oldartzen eta itsasoa inarrosten du, orroe itzeletan irakinaraziz. Xabier Amuriza

---

espiritismo **1** *iz* hilen espirituak biziekin harremanetan jar daitezkeela dioen doktrina.

Ateak irekitzen dizkie ateismoa, panteismoa edo **espiritismoa** bezalako mugimenduei. Berria - Gaiak

Astrologia eta **espiritismoaren** teoriak ahantzi gabe, jakina. Alberto Ladron Arana

Rollebonekin komunikatzeko haietaz baliatzea baino hobe nuke **espiritismora** jo zuzenean. Monika Etxebarria

Gau haietako batean, **espiritismo** saioa antolatu zuen Iñigo Sarasolak. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala ere, **espiritismo**-gaua aukera jeniala zen ondo pasatzeko, espirituen inbokazioan eta haien balizko agerpenean sinetsi gabe ere. Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud/hed

Hutsunea ez zen erabatekoa izan, ordea, eta ez naiz ari "gogoan zaitugu" eta gainerako **espiritismo** politikoaz, ez. Xabier Mendiguren Elizegi

---

espiritista *iz/izond* espiritismoaren aldekoa.

Gizontxoaren istorio paranoikoan, pixkana-pixkana, herriko elezahar aspalditik temati errepikatu baten oihartzuna sumatzen hasia nintzen, hots, Susa Haraneko martetar ospetsuen kontua, erdi aroko kometek bezala iragarpenak zekartzaten ontzi hegalariak aipatzen baitziren, **espiritisten** espirituak bezala ibildaun eta eragingabeak. Juan Garzia

Egia esateko, ez naiz **espiritista** eta segur aski harri eta zur egina utziko nuke **espiritista** on bat, esango banio zein den berriz munduratzeko dudan motibo nagusia. Karlos Zabala

Ez bainaiz ez baptista ez **espiritista**. Joxe Austin Arrieta

Izenda-ezin-daitekeen-hainbat-gauza-ezkutukoren liburu arraroaren eta arriskutsuaren fama jaso zuen zirkulu esoteriko eta **espiritistetan**, eta haren sona handiagotuz joan zen urteek aurrera egin ahala. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

espiritu *(**2131** agerraldi, **121** liburu eta **201** artikulutan -gehien-gehienak Herria aldiakarikoak-; ETCn **11.063** agerraldi; cf **izpiritu** **1812** agerraldi, **109** liburu eta **203** artikulutan; ETCn **6.092** agerraldi; orobat **ispiritu** g.er.)* **1** *iz* gorputz edo materiarik ez duen gai edo izakia. ik **gogo**.

Aita iritsi ezineko argitan bizi da, eta Jainkoa **espiritu** da, eta Jainkoa ez du inork inoiz ikusi. Askoren artean

Inoiz hankapean zapaldu ere egin ohi dira idatziriko haren izen eta hitzak, **espiritu** gabeko gizakiak ez baitu sumatzen Jainkoari dagokionik. Askoren artean

Joan eta beste zazpi **espiritu** hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen; horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da.

Jaunarekin elkartzen dena, berriz, berarekin **espiritu** bat bera egiten da. Elizen arteko biblia

Bakea ematen duen Jainkoak erabat bereak egin zaitzatela, eta zuen izate osoak -gorputz, arima eta **espiritu**- errugabe iraun dezala Jesu Kristo gure Jauna agertuko den egunera arte. Elizen arteko biblia

Espiritu batek hartzen du menpean, eta bat-batean garrasika hasten da; gogor astintzen du eta lerdea dariola jartzen, eta oso nekez alde egiten du berarengandik, hauts eginda uzten duelarik. Elizen arteko biblia

Beraz, **espiritu** oro aldakorra da eta gorputz oro Jaungoikoagandik dator, eta espirituak eta materiak osatzen dute sortutako izadi osoa. Imanol Unzurrunzaga

Bere irudimeneko lainoetan bizi zen halako **espiritu** gorputzik gabeko bat. Oskar Arana

2 (izenondoekin)

Espiritu aldaezina Jaungoikoa da. Imanol Unzurrunzaga

Frantzisko santua, gorputzeko kartzela utzirik, **espiritu** zerutarren egoitzetara igo zen zoriontsu, behin hasi zuena neurri betera eramanez. Askoren artean

Harat-honat zebiltzan judu exortzista batzuk ere Jesus Jaunaren izenaz baliatzen hasi ziren, **espiritu** gaiztoak botatzeko. Elizen arteko biblia

Espiritu gaiztoa, norbaitengandik irten ondoren, leku idor eta lehorretan barrena ibili ohi da atseden bila. Askoren artean

Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, mehatxu egin zion **espiritu** gaiztoari: - **Espiritu** gor eta mutua, neuk agintzen diat: irten hadi mutil honengandik eta ez sartu gehiago. Elizen arteko biblia

Orduan, herensugearen, piztiaren eta sasiprofetaren ahotik zapo antzeko hiru **espiritu** higuingarri ateratzen ikusi nituen. Elizen arteko biblia

Jakinduria **espiritu** adimentsu eta santua da, bakarra, jarduera anitzekoa, fina, mugikorra, sarkorra, kutsagabea, aldaezina, onzalea, zolia. Elizen arteko biblia

Ene Jainko, sortu bihotz garbia niregan, **espiritu** berri sendoa nire baitan. Elizen arteko biblia

Espiritu likitsaren kutsurik ez duenak dauka Jaungoikoa. Imanol Unzurrunzaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **espiritual**.

Idazkiok ederki azaltzen digute, orobat, autorearen giza eta **espiritu** -maila paregabea. Askoren artean

Espiritu -bizitzan aurreratu nahi duen arimak, etsaiak egiten duenaren alderantziz egin behar du beti. Patxi Altuna

Pertsonaia gutxi dira historian San Frantziskok bezalako arreta piztu dutenak, ez bere jarraitzaile kontaezinen aldetik bakarrik -eta teologoen eta **espiritu** -bizitzako adituen aldetik-; kontaezinak dira baita ere Frantziskorengana hurbildu diren historiagile eta poetak, idazle eta pintoreak. Askoren artean

Jainkoaren zerbitzaria ahalegintzen bada bihotz garbitik datorren **espiritu** -alaitasuna barrutik eta kanpotik edukitzen eta gordetzen, deabruek ezin diote inolako kalterik egin. Askoren artean

Bigarren multzoa hiru gutunek osatzen dute: *Ministro bati Gutuna, Ordena osoari Gutuna eta San Antoniori Gutuna,* Frantziskok Anaiartearen buru eta **espiritu** -gidari bezala idatziak. Askoren artean

Testu hauek zuzenean sentiarazten dute Jainkoaren juglare eta goreslearen -"Dei laudator et cultor" (LeLu 8,10)- **espiritu** -bizikizunaren sakontasuna. Askoren artean

Frantziskotar familietan aszesi-testu eta **espiritu** -eraikuntzarako orientabide bezala irakurri izan dira. Askoren artean

Frantziskoren giza eta **espiritu** nortasunaren eta bizi-proiektuaren alderdi ezberdinak. Askoren artean

Halako **espiritu** -eragin bat sentitu zuen, gauza ikusezinetara erakartzen zuena. Askoren artean

Antitetikoak eta elkarren etsai ote dira **espiritu** - eta gizarte-balioak? Iñaki Mendiguren

Paseatzea, ibiltzea eta lasterka egitea gorputzjardunak diren bezala, halaber **espiritu** -jarduna deritza arima prestatzeko eta atontzeko zeinahi moduri. Patxi Altuna

4 irud/hed

"Big Bang" batean, Arrazoimen horrek izate eta pentsamenduetan batera egiten du eztanda, batetik materia eta bestetik **espiritu** : materia eta espiritua bat eta bestelako direla, alegia, funtsean biak Arrazoimena baino ez, batbedera bi modutan erakutsita, subjektu eta objektu. Askoren artean

Santuen eta gizon guztiz bikainen **espiritu** berak gidatzen zuen Frantzisko. Askoren artean

Espiritu horrek iraun egin zuen torneoen usadioari esker; izan ere, adorearen eta maitasunaren eskubideak bateratuta, are garrantzi handiagoa eman zioten kortesiari. Iñaki Iñurrieta

Gozotasun hura argiarekin batera desagertu zenean, **espiritu** berriz jantzita, beste gizon bat bihurtu zen. Askoren artean

Europak **espiritu** bat behar du, ez soilik moneta bakarra, baizik eta jomuga eta balore komunak. Berria - Mundua

Argentinarren **espiritua** aldatu egin da, eta etorkizunera begira jarrera baikorra dago. Berria - Mundua

Elkarren aurkako diruditen legeak maiz **espiritu** beretik sortzen direla. Iñaki Iñurrieta

Batzordean entzundakoa aztertu eta gero, itunaren **espiritua** urratu dela azpimarratu du Martinezek. Berria - Ekonomia

Legeko hitzen gainetik **espiritua** aldarrikatzen zuelako Jesusek. Herria

Zeledonen **espiritua** erraietaraino barneratu beharko du gaur Alavesek, Zaragozan irabazi nahi baldin badu, behintzat. Berria - Kirola

Slobodan Milosevicen **espiritua** , zoritzarrez, oraindik bizirik dago Serbian. Berria - Harian

Orain, 51 urte geroago, Bandungeko **espiritua** gogoan dute Malin egiten ari diren Munduko Gizarte Foroan. Berria - Harian

Borja Semper popularrak ekimenaren **«espiritu** eta literaltasunarekin» bat datozela aitortu arren, EABk bultzatutako ekimena izanik ez dutela babestuko erantsi zuen. Berria - Euskal Herria

5 *irud/hed (izenondo eta izenlagunekin)*

Salvadorrek adierazi du **«espiritu** berri eta biziko jazz kontzertua» izango dela. Berria - Kultura

Pozaldian **espiritu** onak gehiago gidatzen eta aholkatzen gaituen bezala, hala lehorraldian gaiztoak Printzea **espiritu** ahulekoa zen, baina nazioa gerraria izan. Patxi Altuna

Ezin hobeto egokitzen zaio haren **espiritu** eta misio baketzaileari. Askoren artean

Argi dago bi lege horiek **espiritu** berbera zutela: errege hark ezabatu egin nahi zituen godoak eta erromatarrak banatzen zituzten arrazoi nagusiak. Iñaki Iñurrieta

Ni germaniarren legeen **espiritu** orokorraz ari naiz, haien izaeraz eta jatorriaz. Iñaki Iñurrieta

Elkarren aurkako diruditen legeak maiz **espiritu** beretik sortzen direla. Iñaki Iñurrieta

Honek sortzen ditu **espiritu** libre adoretsuak eta buru argiak, eta gizonak bertutetsu bihurtzen. Juan Martin Elexpuru

Batera-nahiak batzuetan harrapatzen ditu **espiritu** handiak ere (izan ere, Karlomagno bera ere harrapatu baitzuen), baina beti harrapatzen ditu **espiritu** txikiak. Iñaki Iñurrieta

Batera-nahiak batzuetan harrapatzen ditu **espiritu** handiak ere (izan ere, Karlomagno bera ere harrapatu baitzuen), baina beti harrapatzen ditu **espiritu** txikiak. Iñaki Iñurrieta

Espiritu erromantikoa eta ameslaria zuen, eta hiriko kanpai hotsek halako melankolia sakon batean murgildu ohi zuten. Askoren artean

Samoseko Pitagorasek -aritmetikaz eta geometriaz arduratu zenak- proportzioak aurkitzen ditu leku orotan, **espiritu** matematikoa -neurria eta zenbakia-, harmonia, berriro. Askoren artean

Espiritu urduria eta huskerietara emana, unean unekoa besterik ikusten ez duen zuhurtasun beldurtia, zurruntasun fidakaitza berrikuntzei aurre egiteko orduan, honelako sentimenduak nagusitzen dira gizaki kaxkarron jarduna eta bizimodua bideratzeko eta konpontzeko ahalmena dutenen bihotzetan. Juan Martin Elexpuru

Erlijio mahometarrrak, ezpataz baizik ez baita mintzatzen, bera sorrarazi duen **espiritu** suntsitzaile horrekin jarduten du gizakien gainean ere. Iñaki Iñurrieta

Ordutik aurrera, **espiritu** kartsuz eta gogo alaiz penitentzia hots egiten hasi zen, bere hizkera xumez eta bihotz handitasunez entzuleak onbidean eraikiz. Askoren artean

Berak uko egiten zion erabat proposamenari, bere **espiritu** prestua zerurantz jarria baitzuen eta nahi zuen gauza bakarra hiltzea zen Kristorekin egoteko. Askoren artean

Miresgarria iruditzen zait euskal herritarren **espiritu** ekintzailea. Berria - Kultura

Zuk badakizu, adiskide, **espiritu** amestiendako naturaren alderdi guztiek, baita ikusi batean elkarrengandik aldenduenek ere, harmonia sekretu mordo bat dutela lokarri. Koldo Izagirre

Nafar **espiritu** sakona oso urrundua dateke espainiar espirutuagandik. Koldo Izagirre

Don Serapio Mujika historialariak, bere aldetik, era honetan erregistratzen zuen donostiarren **espiritu** tipiko hori, artikulu batean: [...]. Askoren artean

Orain nork ukatuko dio gure Zuzendari txit agurgarriari sentiberatasuna, nork gure zibilizazioa hain gora, tirania guztien ere gainetik, jaso duen **espiritu** ausart eta kementsu hori? Anjel Lertxundi

Espiritu kapitalistak, landetan sarturik, nekazaritzari ere eragin zion, Ingalaterran bereziki. Koro Navarro

Boulevardek «hasierako **espiritua** » ez duela bete uste du Inalcoko kontseilari ohi batek. Berria - Ekonomia

Balio horiek, «zintzotasuna, lanerako gogoa, elkartasuna eta sakrifiziorako **espiritua** » direla azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

6 *irud/hed (hitz elkartuetan lehen osagai igisa)*

Bada jende mota bat, **espiritu** mota bat nahiago baduzu, entusiasmoak unatu edo gaina hartzen diena, eta artearen nahiz sorkuntzaren emaitzen aitzinean moldeko esaldi hau esanen dizutenak: betiko bera. Koldo Izagirre

7 *irud/hed (hitz elkartuetan bigarren osagai igisa)*

Elkarrizketa, bizikidetza **espiritua** eta ikuspegi zabalagoak falta dira. Berria - Euskal Herria

Kosovorako NBEren ordezkari berezi Martti Ahtisaariren laguntzaile Albert Rohanek zehaztu zuenez, dezentralizazioaren inguruko auzi praktikoen gainean izandako eztabaidek «elkarlan **espiritua** » izan zuten. Berria - Mundua

Guk ere, sinesmen-**espiritu** bera dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten. Elizen arteko biblia

Diziplinagabetasun-**espiritu** bat zabaldu zen gure artera eta, haren eraginez, bertan behera utzi ziren kultura- eta gorpuzkera-desberdintasunak. Irene Aldasoro

Iparraldeko herriek hegoaldekoek ez daukaten independentzi eta libertate-**espiritu** bat dute eta izango dute beti. Iñaki Iñurrieta

Zailtasunak izan arren ezker abertzaleak «pazientziarekin» eta «kirol **espiritu** demokratikoarekin» jokatuko duela ziurtatu zuen Arnaldo Otegik. Gure zalduneri eleberriek areagotu egin zuten atsegin agertzeko gogo hori, eta kortesia-**espiritu** hori eman zioten Europako alde bati, lehenagokoek ezagutzen ez zutena, inondik ere. Berria -

Euskal Herria

8 *espirituzko izlag* ik **espiritual**.

Zalduna, **espirituzko** aristokrata zen, eta izpiritu kritikoa naturaltasunez bizi zuen. Berria - Harian

Gutunetan edo Otoitzetan ageri den Frantziskoren giza eta **espirituzko** esperientzia aberatsa. Askoren artean

Espirituzko naretasun handiz bizi izan baikinen, gorputzaren kutsadura orotik arima zainduz. Imanol Unzurrunzaga

Etenik gabe, aitorpen bortitz bat egiten du idazle gazteak, **espirituzko** streep-tease betean: [...]. Karlos Linazasoro

Zeure Seme bakarraren bitartez, Espiritu Santuarekin batera, **espirituzko** eta gorputzezko gauza guztiak egin zenituelako, eta gu, zeure antzeko eta irudiko eginik, paradisuan ezarri gintuzulako. Askoren artean

Seme-alabengana berez zabaltzen den haragizko aitaren maitasuna baino ere sutsuagoa zen haren **espirituzko** maitasuna, Jainkoaren gizona eta honen anaiak Jaunagan maitatzeko eta beraiei laguntzeko. Askoren artean

Espirituzko karitateaz, elkar zerbitza eta elkarri obedi biezaiote borondatez. Askoren artean

Haiek, giza begiz, haren giza gorputza besterik ez zuten ikusten, baina, **espirituzko** begiekin begiratuz, Jainkoa bera zela sinesten zuten. Askoren artean

Frantziskoren hitzen indarrak hunkiturik, haren ahotik irtendako **espirituzko** ezpatak zeharkatu balu bezala, munduko handikeriak erabat arbuiatu zituen eta aita dohatsuari atxiki zitzaion, haren Ordenan profesa eginez. Askoren artean

Kantu berriak kantatzen dira, eta **espirituzko** doinuz bozkariatzen dira Jainkoaren zerbitzariak. Askoren artean

Halako plazer **espirituzko** bat sentitzen duzu orduan. Jose Morales

Horrela, jasaten ari zen tentaldi larri batetik **espirituzkoa**, ez haragizkoa- libre geratuko zela uste zuen. Ramon Saizarbitoria

9 ***Espiritu Santu*** Hirutasunaren hirugarren pertsona.

Jaunaren, Aita, Seme eta **Espiritu Santuaren** izenean. Askoren artean

Bedeinka ditzala Aitak eta Semeak eta **Espiritu Santuak**. Askoren artean

Aintza Aitari eta Semeari eta **Espiritu Santuari**. Askoren artean

Inork ezin du esan "Jesus Jauna da" **Espiritu Santuak** eraginik ez bada. Askoren artean

Espiritu Santuak gidaturik, mendi batera igo zen bi lagunekin, eta han, barau eginez, ogia eta ura besterik hartu gabe, Erregela idatzarazi zuen, Jainkoaren Espirituak otoitzean adierazten zion bezala. Askoren artean

Arren erregutzen dugu, Jesu Kristo gure Jaunak, atsegin izan zenuen zeure Seme maiteak, guztiagatik eskerrak eman diezazkizula **Espiritu Santu** Laguntzailearekin batera. Askoren artean

Sufrimendua jasateak giza bihotza anitz gauza ulertzera irekitzen duenez, Jaunak gainean ezarri zion bere eskua eta Goi-goikoaren esku-hartzeak haren gorputza gaixotasun luzez jo zuen, arima **Espiritu Santuaz** jantzia izateko gai egin zedin. Askoren artean

Harrituta gelditu zen anaia Frantziskoren santutasunaz, ikusiz nola bere tentaldiak **Espiritu Santuaren** argiz ezagutu zituen. Askoren artean

Zerura igo aurretik, **Espiritu Santuaren** eraginez, azken aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. barnetegirako itzulera astelehen goizerako dago finkatuta, urriaren bigarrenerako; **Espiritu Santuaren** mezarekin emango zaio hasiera. Elizen arteko biblia

Haren hitzak ez ziren hutsalak eta barregarriak, **Espiritu Santuaren** indarrez beteak baizik, bihotzaren barne muinetaraino sartzen zirenak eta entzuleak biziki txunditzen zituztenak. Askoren artean

Edo hik zer uste duk, **Espiritu Santuaren** hipostasia Aitaren edota Semearen hipostasitik ezin berezizkoa dela? Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aitarekin eta espiritu (4); **bai espiritu** (5); **baina espiritu** (12); **baina espiritu santuaren** (4); **bere espiritu** (11); **bidalitako espiritu** (6); **bidalitako espiritu gaiztoak** (4); **da espiritu** (12); **den espiritu** (7); **du espiritu** (4); **duen espiritu** (7); **edo espiritu** (5); **emandako espiritu** (4); **ere espiritu** (6); **espiritu alaitasuna** (6); **espiritu aske** (4); **espiritu bat** (22); **espiritu bat bera** (5); **espiritu berarekin** (4); **espiritu berri** (7); **espiritu berria** (4); **espiritu eta** (23); **espiritu eta bizi** (4); **espiritu gaizto** (11); **espiritu gaiztoa** (9); **espiritu gaiztoak** (21); **espiritu gaiztoak botatzeko** (4); **espiritu gaiztoaren** (5); **espiritu gaiztoek** (5); **espiritu gaiztoen** (5); **espiritu hori** (16); **espiritu horrek** (6); **espiritu horri** (4); **espiritu kartsuz** (7); **espiritu onak** (5); **espiritu santu** (7); **espiritu santu laguntzailearekin** (4); **espiritu santua** (58); **espiritu santua jaitsi** (6); **espiritu santuak** (75); **espiritu santuak eraginda** (4); **espiritu santuak eraginik** (4); **espiritu santuarekin** (10); **espiritu santuaren** (126); **espiritu santuaren argiz** (9); **espiritu santuaren bidez** (5); **espiritu santuaren bitartez** (4); **espiritu santuaren eraginez** (8); **espiritu santuaren graziaz** (4); **espiritu santuaren indarrez** (4); **espiritu santuaren izenean** (8); **espiritu santuari** (15); **espiritu santuaz** (30); **espiritu santuaz beterik** (7); **espiritu santuaz eta** (5); **eta espiritu** (129); **eta espiritu santu** (5); **eta espiritu santua** (12); **eta espiritu santuak** (10); **eta espiritu santuarekin** (7); **eta espiritu santuaren** (23); **eta espiritu santuari** (8); **eta espiritu santuaz** (6); **frantziskok espiritu** (5); **frantziskok espiritu santuaren** (5); **haren espiritu** (4); **jainkoa espiritu** (4); **jaunak bidalitako espiritu** (4); **seme eta espiritu** (7); **semea eta espiritu** (6); **semearen eta espiritu** (10); **semeari eta espiritu** (4); **zen espiritu** (10); **zen espiritu santuaren** (5); **zeure espiritu** (5); **zion espiritu** (4); **zuen espiritu** (12)

bere espiritua (23); **den espiritua** (5); **egiaren espiritua** (5); **espiritua da** (9); **espiritua eman** (7); **espiritua ere** (8); **espiritua eta** (30); **espiritua ez** (15); **espiritua hartu** (6); **espiritua ikusi** (4); **espiritua isuriko** (8); **espiritua isuriko diet** (5); **espiritua izan** (6); **espiritua jainkoari** (4); **espiritua pozez** (4); **espiritua zuengan** (4); **espiritua zuengan bizi** (4); **eta espiritua** (35); **eta jainkoaren espiritua** (4); **frantziskoren espiritua** (6); **giza espiritua** (4); **haren espiritua** (8); **jainkoaren espiritua** (16); **jaunaren espiritua** (28); **jaunaren espiritua eta** (4); **legearen espiritua** (4); **neure espiritua** (11); **neure espiritua isuriko** (6); **nire espiritua** (10); **profeta espiritua** (6); **profezi espiritua** (7); **santuaren espiritua** (4); **zuen espiritua** (6); **zure espiritua** (4)

arabera eta espirituak (4); **baina espirituz** (6); **bere espirituan** (5); **bere espirituaren** (8); **beza espirituak** (8); **beza espirituak eliz** (7); **duen espirituaren** (4); **espirituak adierazten** (5); **espirituak berak** (4); **espirituak eliz** (7); **espirituak eliz elkarteei** (7); **espirituak ematen** (6); **espirituak eraginda** (14); **espirituak eraginik** (4); **espirituak eta** (6); **espirituak ez** (4); **espirituak gidatzen** (6); **espirituak gora** (5); **espirituak gora jaso** (5); **espirituak hartu** (16); **espirituak hartu eta** (4); **espirituak hartu ninduen** (5); **espirituak hartu zuen** (7); **espirituarekin bat** (6); **espirituaren arabera** (12); **espirituaren bidez** (10); **espirituaren eraginez** (13); **espirituaren eta** (9); **espirituaren indarrez** (9); **espirituaren kontra** (7); **espirituaren zati** (4); **espirituaren zati bat** (4); **espirituko tentaldi** (4); **espirituz eta** (4); **espirituz mozkortuta** (6); **espirituz mozkortuta bezala** (5); **eta espirituak** (16); **eta espirituak eraginda** (4); **eta espirituaren** (21); **eta espirituko** (15); **eta espiritutik** (4); **eta espirituz** (7); **eta espirituzko** (10); **ez espirituaren** (5); **giza espirituak** (5); **giza espirituaren** (7); **gorputzeko eta espirituko** (4); **gure espirituaren** (4); **haren espirituak** (9); **jainkoaren espirituak** (18); **jainkoaren espirituaren** (6); **jaunaren espirituak** (27); **jaunaren espirituak hartu** (8); **legeen espirituaz** (5); **profeta espirituz** (4); **uler beza espirituak** (7); **zure espirituaren** (4)

---

espiritual 1 *izond* espirituari dagokiona, espirituzkoa.

Oso aurpegi polita du, eta begi bizi-biziak eta oso **espiritualak**, baina berak nahi ala ez, gaiztoa eta gogorra den zerbait dago marraztuta haren hazpegietan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Irakurketa honek errealitate **espiritualen** existentzia onartzera eraman zuen. Imanol Unzurrunzaga

Izan ere, galdetu nahiko banu ea arimak bere baitan izaera **espirituala** duen, orduan galdekizun honek ez luke ezein zentzurik izango. Ibon Uribarri

Beste aldea, alderdi **espirituala**, berekiko gordetzen zuen Adelak, eta oso jende gutxik zekien haren berri, ez ezkutatzen ahalegintzen zelako, baizik eta inguruan ez zuelako ez interesik ez sentikortasunik ikusten inori halakorik azaltzeko. Juan Kruz Igerabide

Errealitate materialetatik **espiritualetara**, sentigarritik materiagabekora jauzi egiteko, arte liberaletara jotzen du, gramatikara zehazki. Imanol Unzurrunzaga

1224ko irailean, gailurra jo zuen Frantziskoren ibilbide **espiritualak**: Jesu Kristoren nekaldiko oinazeekin bat egiten du bere "nekaldi" pertsonalaren bidez. Askoren artean

Oroi naiz Ain Sefra hirian nintzela erretreta **espirituala** egiten, beste apezgai batzuekin izigarriko segada erreusitu zutelarik gure soldadoek Tamedda mendiaren kaskoan. Piarres Aintziart

Berorren laguntza **espiritualaren** beharrean nago. Koldo Biguri

Aholku **espiritualak** dira, Frantziskok bere ebanjelio-bizitzako urteetan zehar emanak. Askoren artean

Melen ustez, benetako maitasuna maitasun **espirituala** baino ez zen. Koro Navarro

Gizaki primitiboaren ikuspegi **espiritualean** elkartasuna dago nabarmen tribukidearen eta bere jainkoen artean. Iñaki Mendiguren

Islamak testigantza eman zuen, denboran zehar, Mahomak gizadiari ekarri zion erlijio-mezuaren balio **espiritualaz**. Iñaki Mendiguren

Kristautasuna Zibilizazio Helenikoaren kolapsoaren ondoriozko neke **espiritualetatik** sortu zen. Iñaki Mendiguren

Jainkoak eta bere aingeruek, beren eraginaldietan, zinezko alaitasuna eta poz **espirituala** ematen dute, etsaiak eragiten duen tristura eta asaldura oro uxatuz. Patxi Altuna

Haur-borrokan, helduarenean bezala, garaipen **espiritualak** prezio **espiritual** bat izaten du. Iñaki Mendiguren

Erdi Aroko pentsamenduan, politikari buruzko pentsamendua, fedea vs arrazoia eztabaida izan zenez, botere **espiritualaren** eta munduko boterearen arteko harremanetarantz bideratu zen. Askoren artean

Subkontzientea baita, ez adimena, gizakiak bere bizitza **espirituala** bizitzeko duen organoa. Iñaki Mendiguren

Ez omen dago bizitza **espiritualik** nekerik gabe eta irakurketa bezalako aisia betetzeko ekintza intelektual batek ere neke fisiko halako bat [...] behar du. Anjel Lertxundi

Orientabide bat nahi zuen aurkitu, aldi berean **espirituala** eta praktikoa izango zen egia bat. Josu Zabaleta

Apartamentu hura urte haietako bilera **espiritual** eta mundutar garrantzitsuenak hartu zituen agertokia izan zen. Ander Irizar

Ez daki bi denbora daudela, fisikoa eta **espirituala** (poema labur baten irakurketarako behar ditugun bost minutuek ordurik gabeko denbora batera eramaten gaituzte), eta baleki ere, ez luke ulertuko ez direla paraleloak, ez doazela abiadura berean, ez dutela esperientzia berdinik eskaintzen. Anjel Lertxundi

Baina giza bihotza alaitasun **espiritualez** beterik denean, alferrik isurtzen du sugeak bere pozoi hilgarria. Askoren artean

Handiak izan ziren iragan mendeko aldaketa sozial eta politikoak; lazgarriak oso bai bi mundu gerrateak bai gure gerra zibila ere; sakonera izugarrikoa, gerra horien ondorengo amildegi **espirituala**. Anjel Lertxundi

Erromatar komunikabideek lagundu zuten merkataritza **espiritualean**, kristautasunak horrela topatu zituen beste erlijio nagusi eta filosofietatik beraietan onena izandakoaren muina atera eta heredatu zuen. Iñaki Mendiguren

Hain da ahalguztiduna ezen ezerezetik, hots, izaterik ez duenetik, sor baititzake gauza handiak eta txikiak, zerukoak eta lurrekoak, **espiritualak** eta korporalak. Imanol Unzurrunzaga

2 (pertsonei buruz)

Frantzisko Sienan zegoela, Predikarien Ordenako bat etorri zen bertara, gizon **espirituala** eta teologia santuan doktorea. Askoren artean

Bere lagunak mezularia bidali zion andre **espiritual** bati santuarentzat ogia eta ardoa apalki eskatuz. Askoren artean

Hau dena, otoitzean ari zen anaia **espiritual** batek ikusi zuen, ilargia oso argi baitzegoen zeruan. Askoren artean

Cheikh Ahmed Yassine, Hamaseko buruzagi **espirituala** hil dute israeldarrek. Herria

Israelgo Armadak Hamaseko buru **espirituala** hil eta biharamunera, NBE Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseilua bilera egitekoa zen bart, Jassinen hilketaz nola erantzun erabakitzeko. Berria - Mundua

Hurrena, anai Jaxintorengana jo nuen, anaiatzat ez ezik, gidari **espiritualtzat** ere -nolabait esatearren- jotzen bainuen azken bolada hartan. Joan Mari Irigoien

Jean Duvergier de Hauranne (1581-1643), teologoa, Jansenioren laguna, jansendarren egoitza izan zen Port-Royalgo abadiaren zuzendari **espirituala**. Juan Martin Elexpuru

Erlijio sinesdunak kontsumitzaile **espiritualtzat** jotzen ditu New Age mugimenduak. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan)

Anaia Eguzkiaren Kantikaren iturri teologiko- **espirituala**. Askoren artean

Frantziskoren kultura batez ere teologiko- **espirituala** izan zen, esperientziari lotua. Askoren artean

• **4** *iz* iparramerikar beltzen erlijiozko kantua.

Talde honek, emanaldi bakoitzean, esklabo afroamerikarren garaiko **espiritualetatik** hasi eta igandeko mezetan abesten dituzten soinuetara arte bidaia egiten du. Berria - Kultura

Eta zelan kantatzen dituen **espiritual** zoragarri horiek! Mirentxu Larrañaga

Eta horiek **espiritual** zoragarriak horiek!... Gogoko ditut, gero! Mirentxu Larrañaga

Ez elizako (**espiritualak** bezala) edo lanerako (lan-kantak) musika, eguneroko pena ugariak eta poz laburrak kantatzeko herri-musika baizik. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Negro **espiritual** horietako bat eskaintzen digu. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aholku espiritualak (9); **anaia espiritual** (3); **aurrerapen espirituala** (3); **bizitza espirituala** (6); **bizitza espiritualaren** (4); **buru espiritual** (3); **buru espiritual ahmed** (3); **buru espirituala** (4); **buruzagi espiritual** (7); **buruzagi espiritual ahmed** (4); **buruzagi espirituala** (4); **espiritual ahmed** (8); **espiritual ahmed jassin** (6); **espiritual bat** (8); **espiritual batek** (4); **espiritual baten** (5); **espiritual bati** (6); **espiritual eta** (16); **espiritual hori** (4); **espirituala dela** (4); **espirituala den** (3); **espirituala eta** (17); **espirituala eta ordenan** (4); **espirituala hil** (4); **espirituala izan** (3); **espirituala lortzeko** (3); **espirituala zen** (3); **espiritualak eta** (5); **espiritualaren eta** (5); **eta buruzagi espiritual** (3); **eta espiritual** (9); **eta espirituala** (7); **eta espiritualak** (4); **eta espiritualaren** (3); **gizon espiritual** (5); **gizon espiritual bati** (3); **gizon espirituala** (4); **gizon espirituala eta** (4); **hamaseko buru espiritual** (3); **hamaseko buru espirituala** (4); **ibilbide espiritualaren** (3); **izaera espiritual** (3); **oso espirituala** (8); **oso espirituala eta** (5); **teologiko espirituala** (3); **zentzu espiritual** (3)

---

espiritualismo *iz* espiritualtasuna.

Materialismoa alferrikakoa baldin bada nire izatearen argipen-era gisa, orduan **espiritualismoa** ere horretarako askieza da. Ibon Uribarri

Mugimenduak globalismoa nabarmendu zuen AEBen partikularismoaren ordez; kultur eta erlijio aniztasuna, Mendebaldeko judu-kristautasunaren ordez; eta **espiritualismoa** monoteismo etikoaren ordez. Berria - Gaiak

Erretorika irakasleak izaten dira horiek, XVIII. mendean doministiku nola egiten zen kontatzeko eginkizun goitarra duten horietakoak, zientziak nola huts egiten duen, eta materialismoa, determinismoa, kausa-efektu kateatzea arrunkeria bat dela eta **espiritualismoa** gauza goititu eta guztiz fina dela esaten digutenak. Josu Zabaleta

1868ko "iraultzaren" ondoren [...], positibismoa liberalismoari asoziatua agertu da, idealismoa eta **espiritualismoa** erregimen zaharraren aliatutzat jotzen ziren bitartean. Joxe Azurmendi

Era honetan korrientea izan da ekialde/mendebal alde kontrajarpenarekin operatzea kultur historian edozeren interpretaziorako (mitoa versus filosofia, mistika versus teknika, **espiritualismoa** versus materialismoa, etab.). Joxe Azurmendi

Doktoreak batean biltzen, konbinatzen, nahasten zituen Ekialdeko **espiritualismo** zaharra alemaniar materialismoarekin, Apostoluen morala Epikurorenarekin. Josu Zabaleta

Guretzat bizitzan oinarrigabekoa den **espiritualismo** gogoberoan ez galtzeko. Ibon Uribarri

---

espiritualista *izond/iz* espiritualismoari dagokiona; espiritualismoaren aldekoa.

XIX. mendean izan zen joera **espiritualista** bat artean. Iñaki Iñurrieta

Biologiak, soziologiak, antropologia **espiritualistak** "hausten" duten gizakia bere batasunean, osotasunean bilatzen. Askoren artean

Psikologoak agerpenak berbaitango gauzatzat hartzen baldin baditu, orduan bere irakatsian materia soilik onar dezake, materialista den aldetik, edo zerizan pentsatzaile soila (hots, gure barneko sentsuaren formaren araberako zerizana), **espiritualista** den aldetik, edo biak, berez existitzen diren gauzak bezala, dualista den aldetik. Ibon Uribarri

Kandinski bera ere, **espiritualista** haien iturrietatik edana zen. Iñaki Iñurrieta

Espiritualista dogmatikoak egoeren aldakuntza orotan aldaezin dirauen pertsonaren batasuna bera nian zuzenki hautematea uste duen substantzia pentsatzailearen batasunetik abiatuta argitzen du. Ibon Uribarri

---

espiritualitate *iz* espiritualtasuna.

Frantziskoren bizitzan, **espiritualitatean** eta otoitzean toki berezia du Mariak, salbamenaren historian eginkizun berezia duen bezalaxe. Askoren artean

Badira S. Frantziskoren idazkietan hainbat hitz eta kontzeptu, bere pentsamenduan eta **espiritualitatean** joan-etorri handikoak izanik, adiera berezia dutenak. Askoren artean

Espiritualitate berri baten bila zebilela aitortu zuen egunkari batean, Amazonian -ez dakit Perukoan edo Ekuadorkoan- denboraldi bat egin ondoren. Joan Mari Irigoien

Helburua gure barruko **espiritualitate** kristaua piztea izango zen beti ere, bizimodu zintzoagorako asmotan jarri eta, ahal bazen, norbaiten barruan ezkutaturiko erlijiorako bokazioa ernaraztea. Xabier Mendiguren Elizegi

Zinezko **espiritualitatea** dario argazki horretan, ikuste kontu horietan sinesten ez duenarentzat ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Zelanok **espiritualitate**-tratatu txiki sistematikoa eskaini nahi die anaiei. Askoren artean

Klararen idazkiek argi adierazten dituzte bere pentsamenduaren eta **espiritualitatearen** iturri edo eragin nagusiak. Askoren artean

---

espiritualizazio *iz* espiritual bihurtzea.

Desatxikimendua, arkaismoaren **espiritualizazioa**, arimaren gotorlekura erretiratzea da, "mundua" abandonatzea. Iñaki Mendiguren

Ez dago pentsamenduen materializaziorik, ezta hotsen **espiritualizaziorik** ere. Isabel Arrigain

Figura geometrikoak nagusitzen dira euskal artisten lanetan, Plazaolaren ikerketaren arabera: «Naturatik urrun, **espiritualizazioak** eta abstrakzioak bilatu ditu, geometrizazioak». Berria - Kultura

---

espiritualki *adlag* espirituaren aldetik.

Gizakiok ez gaude, ez fisikoki ez psikikoki ez **espiritualki**, progresio aritmetikoaren baitan bizitzeko prestatuak, gure mugak aski apalak dira. Karlos Linazasoro

Nola erabaki ETAren borroka ez dela **espiritualki**, moralki, historikoki oso positiboa? Joxe Azurmendi

Birjinen Birjina loriatsuak gorputzean materialki bezala, zuk ere, ez dago zalantzarik, beti eraman dezakezu hura **espiritualki** zeure birjina-gorputz garbian, haren urratsei, apaltasun eta pobretasunari batez ere, jarraituz. Askoren artean

Espiritualki, ni baino sendoagoa zara –esan zion Vladimirri-. Bernardo Atxaga

Arima adimenduna, berarekin **espiritualki** besarkatuta, egiazko bertutez gainezka, ernari jartzen da, nolabait esanda. Imanol Unzurrunzaga

Moralki ohoragarria baina **espiritualki** arriskutsua. Iñaki Mendiguren

Analogia honetan, espero daiteke ingurune **espiritualki** gogorrek eragin bizigarria izatea erlijiozko ahaleginetan. mundu-oparotasunaren miasmak, masa lelotzen duenak, ongi eragin lezake mundu honetako xarmei buruzko mesfidantza arima **espiritualki** sentibera eta kementsuetan. Iñaki Mendiguren

---

espiritualtasun *iz* espirituala denaren nolakotasuna; bizitza espirituala.

Bereziki mito hau, Minotaurorenean nahasten baitira, ausarki, gizakiak duen animaltasun eta **espiritualtasuna**, zezen zuriak eta Pasifaek egin zuten bezala. Berria - Kultura

Jayshrik «ñabardura erlijiosorik gabeko **espiritualtasuna**» islatzen du bere musikan. Berria - Kultura

Sentitzen nuen, zuzen edo makur, parrokian gutiziatzen genuen **espiritualtasuna** mundutik zaintzeko aterbe baten eraikitzea zela. Piarres Aintziart

Badira Breizen nazio-izaeran tinko sinetsi eta fede horren berreste-ibilaldi gisa aldarrikatzen dutenak; baita bere **espiritualtasun** eta transzendentzia sentitu nahian erromesaldi erlijiosoa egiten dutenak ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mezak, meditazioak, Izkribu Sainduen irakurketak, mendian egin ibilaldiak, eztabaida plantakoak, afalondoko kantu sentimental eta etsenpluzko jostetak: onestasunezko **espiritualtasun** batean murgilduak ginen. Piarres Aintziart

Haren begiradaren **espiritualtasuna** gabe, gizon inozotzat har zitekeen. Monika Etxebarria

Musikazaletasunak **espiritualtasuna** esan nahi zuelako uste zabaldu eta arrunt hori iritzi okerra zela hasi zitzaion iruditzen. Josu Zabaleta

Medikamentuak baikortasun zentzugabea ematen zion, edo, zehatzago esanda, **espiritualtasun** gozo bat, Santa Teresaren estasitik hurbil zegoena. Patxi Iturritegi

Haren ugaritasun topizkoko eta irudimenik gabean ez baitzegoen nire adiskidearen **espiritualtasun** jasoarentzat interesgarria izan zitekeen ia ezer. Koro Navarro

Lanak daukan **espiritualtasun** kutsua ez zuen behar bezala jasotzen jakin, nire ustez. Berria - Kultura

Xabierko **Espiritualtasun** Zentroan, bestalde, santuari eskainitako erakusketa ikonografikoa zabalduko dute 13:00etan. Berria - Euskal Herria

---

espiritutasun *iz* espiritua izateko nolakotasuna.

Nahasmena nagusi den garaietan, aldaketaren aroan, gizakiek muturrera jotzeko joera dute: fundamentalismoa batetik eta norberaren **espiritutasuna** bestetik. Berria - Gaiak

Substantzia honek barneko sentsuaren objektu soila den aldetik materiagabetasunaren adigaia eskuratzen du; substantzia bakuna den aldetik ustelezintasuna; bere identitateak, hura substantzia intelektuala den aldetik, pertsonatasuna; hiru atal hauek batera **espiritutasuna**. Ibon Uribarri

---

espitoso *izond adkor* euforikoa.

Funk dance elektroniko baten erritmo **espitosoak**. Paddy Rekalde

---

espitx *iz adkor* ele parrasta.

Tiketa hartzean txoferrari garraiobide publikoen prezioaz **espitx** bat botatzekotan egon zen, baina bertan behera utzi zuen haren muturbaltza ikusitakoan. Unai Iturriaga

---

espiun *iz ipar* espioia.

Zaldi tropa bat behar zuten mugaz bestaldera pasarazi eta Pettan zen besteak baino aitzinago joana, zaldi bat kordatik estekan, miatzaile edo **espiun** gisa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gau huntan lau **espiun** amerikano etorriko dira semenariorat. Herria

Hemen, eliza honetan, **espiun** zerbait barrandan baldin badago, hanbat gaixto harentzat! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Espiun bezala ari nintzala, Cologne-ko gaulliste-n elkartearekin harremanak banintuela, eskapatzeko sare bat zuzentzen nuela. Michel Oronoz

---

espiungo *iz ipar* espioitza.

Bertze bat Valentin Moïsseiev diplomatzalea, hiru urte hautan preso daukatena **espiungoan** arizanik, omen, Hego Korearekin. Herria

Delako aireko hori ari zen **espiungoan** eta lan horrentzat zen gain gainetik hornitua oraiko tresna hoberenez. Herria

Berrikitan gaitzetsi ditu bortizki ONU erakundeak igorri ikertzaleak, **espiungoan** zirela ari Irakian. Herria

---

esplanada *iz* zabaldegia, zelaigunea.

Lehenik katedrala handi bat oso ederra, aintzinean **esplanada** bat kasik Lurdes-en bezalakoa eta ondo horietan etxeak batzu besteak bezain ospetsuak. Herria

---

esplikaerraz *izond* erraz esplikatzen dena.

Erantzunik gabe utzi beharreko auzia dugu oraingoz edo *eo* esatea ala *ura/uDe* esatea den fonologikoki **esplikaerrazago**. Lourdes Oñederra

---

esplikaezin *izond* ezin esplikatuzkoa, ezin azalduzkoa.

Ordu arte ez nekien bizitza faltsu batek, izen mailegatu baten gainean eraikiak, benetako bizitza suntsitu dezakeela; orain, ordea, neure larruan sufritzen nuen hitzaren, hitz idatziaren magia **esplikaezina**. Matías Múgica

Ea zergatik zen bizitza hain laburra, hain **esplikaezina**. Anton Garikano

Bere lagun Luis Rosales-en tesien aldeko izan zen, alegia Persiles eta Segismundaren neke **esplikaezinen** egilea ezin izan zitekeela inolaz ere Kixotearen autorea. Juan Garzia

Halako lotsa **esplikaezin** batek gorritu zizkidan masailak. Xabier Mendiguren Elizegi

---

esplikagai *iz* esplikatzeko gaia.

Alegia, fonologiak (hau da, ekoizpen-oharmen indarrek) zerbaiten esplikaziorik ezin badu eman, zerbait hori ez da fonologiaren eremuko **esplikagaia**, beste nonbaitekoa izango da. Lourdes Oñederra

---

esplikagaitz *izond* esplikatzen gaitza dena, ia esplikaezina.

Horrelakoetan, ordea, serio jartzen ginen biok, halako zera **esplikagaitz** bat genuela buruan. Xabier Mendiguren Elizegi

Mutiko arrotz haren soa ez zezakeen jasan, urduritasun **esplikagaitza** sortzen zion. Elena Touyarou

Gure gizonari menderatu ezinezko umiliazio-sentimendua, **esplikagaitza**, igo zitzaion buruko ileen erroetaraino. Jon Alonso

Ohe gainean, sartzean bota duen tokian, liburua dago, tribu detxematuaren azken cherokeea, Maria Sara doktorearen adeitasun **esplikagaitzaz** Rua do Milagre de Santo António errefuxiatu dena, **esplikagaitza**, esaten dio bere buruari, ez delako ulergarria proposamena egin izana bakarrik ironiarengatik. Jon Alonso

Zeina aldian behin "'na sôtià", "'na hamortà", "'na gran beemà" esapidez definitzen baitzuen (eroa, astoa, basapiztia halakoa); garraztasunik gabe, hala ere, eta are xamurtasun **esplikagaitzezko** ukitu batekin. Juan Garzia

---

esplikagarri **1** *izond* esplika daitekeena, esplikatzeko modukoa.

Uholderik ere ez dakusat inondik; harea bakarrik, hondarra, ilargiak argiztatua, eta haizeak uhindua, uraren antzera, hori bai, baina hori ez zait harrigarria iruditzen, ezta fantastikoa ere, guztiz **esplikagarria** baizik. Joxe Austin Arrieta

Alde horretatik *feeding* eta *counterbleeding* hurrenkerak bakarrik lirateke **esplikagarri** (Kiparsky 1968) edo EZ-MARKATUENAK behintzat (Kiparsky 1971). Lourdes Oñederra

2 *iz* esplikazioa.

Nik, neurez, bertze **esplikagarririk** ez dut aurkitzen. Aingeru Epaltza

---

esplikapen *iz* esplikazioa.

Gizonak ez zuen ulertzen zergatik atxilotzen zuten eta, hamaika **esplikapen** eman ondoan ere, ez zuen astoak latina baino gehiago ulertzen. Elena Touyarou

-Herritarra, ez dut egungo eguna zuri **esplikapen** ematen galdu gogo gero, eta ez dut batere gutiziarik gainera -erantzun zion, hozki-. Elena Touyarou

---

esplikatibo *izond* esplikatzen edo azaltzen duena.

Hitzak elkartzen dituenean, maiz **esplikatiboa** da edo gradazioa adierazten du: hala gertatzen da S. Frantziskorengan hain ugari diren bikoteetan: ministro eta morroi ez dira funtzio ezberdinak (minister et servus: bigarrenak lehenengoa indartzen eta argitzen du, haren esanahi etimologikoa nabarmenduz). Askoren artean

Ortega-rengatik esan behar da, herriaren gogo kontzeptuarekin nahiko kriti-ko izan dela -hobeto, kontzeptu horren erabilera batzuekin- eta nahiko positibo eta **esplikatiboa** ber denboran jendaurre espainolarentzat, alferrik izan bada ere. Joxe Azurmendi

Lexiko arrunta, ahal den eta kausal- **esplikatiborik** gutxien, kontsekutiborik ez... esanahirik zabalenean hartuta, ideologiak berak markaturiko adierazpidea da prentsarena ere. Iñigo Aranbarri

---

esplikatu, esplika(tu), esplikatzen *(orobat **explikatu** g. er.)* **1** du *ad* azaldu, adierazi; ulergarria egin.

Geroxago, hartu dugun taxian gidariak **esplikatu** digun bezala, aireportu hori munduko haundienetarikoa da eta uharte artifizial baten gainean dute eraiki. Ramuntxo Etxeberri

Horrek **esplikatuko** luke beraz "Herri Urrats" edo "Euskal Herri Zuzenean" gertakarien arrakasta! Ramuntxo Etxeberri

Umore onean zen egun batez, irakasleak **esplikatu** zigun, Urkia, arbola baten izena zela. Daniel Landart

Esplikatu zidanez, bizimodu sedentarioa eginez, gizen-deposito bat formatzen da begietan barrena, osasunaren kaltean; nekezko jardunez, gizena gastatu egiten da, begiak begizuloen barren-barrenera egiten dute atzera, eta zorrotzago bilakatzen. Juan Garzia

Deputatu laborista, eskosiar eta Galesak ere ikusi ditu eta heieri ere bere plana **esplikatu**. Herria

Mixteriozkoa, nehork ez baitezake garbiki **esplika** zertako den, zertako duen hau azkarkiago joiten, hura arinkiago. Herria

Horrek **esplika** lezake, parte batez, protestak hain behin behinekoak eta barreiatuak izatea. Berria - Ekonomia

Bideo bati buruzko xehetasun batzuk **esplika** zitzala eskatu nion saltzaileari, eta laster geratu zen argi berak ere, su artifizialezko lau memelokeria alde batera utzita, ez zekiela ezer. Jon Alonso

Narrazio mitikoak hartzen ditut gogoan, nire gizarteko jendearen bizitza **esplikatzen** baitute. Bernardo Atxaga

Newtonek teoria bat zuen mundua **esplikatzeko**. Berria - Harian

Bi bezeroren arteko tarteetan, haren mahaira joaten ninduan, eta hark matematika **esplikatzen** zidaan. Jon Muñoz

Hizkuntza arkaiko edo ilun batean idatziriko inskripzioak argitu eta **esplikatzeko**. Isabel Arrigain

Ebanjelioko hitzak **esplikatu** zizkioten. Itxaro Borda

Esplikatu zion herrialde urrun batetik etorria zela Ishmirren edertasun eta adeitasunaren ospeak erakarrita. Xabier Mendiguren Elizegi

Horregatik, hain zuzen, XX. mendeaz geroztik hasi dira artearen historialariak Artearen sorrera **esplikatzeko** imitazioa edo erlijiozko erritua ez diren bestelako premia

psikologiko batzuetan oinarritzen, adierazi beharra kontuan hartuz batez ere. Josu Zabaleta

Kattalinek Joanesen egoera **esplikatzen** die, soldadu zela eta familiako sostengu bezala etxera itzultzeko baimena ardietsi zuela. Eneko Bidegain

Esplikatzen ahal diguzu *Operation lune* hori? Berria - Kultura

Ez zuen ezer ulertzen eta dena **esplikatu** behar zitzaion, eta gero esaten zuen: ah. Koldo Biguri

Miranderen amoralismoak ere, kristautasunaren arbuioak bezalaxe, bere testuinguru eta lagunarte zabalagoa duela, hortxe duelarik bere sentidua kultur historian (zilegitasun edo zuzentasuna eztabaidatzea beti dagoela, ukatu gabe: **esplikatzen** ari gara, ez legitimatzen). Joxe Azurmendi

21. Berdin b / ß bikotean bigarrenaren jarraitutasuna da ingurune jarraituagatik **esplikatzen** dena eta, horregatik, bigarrena hartzen da alofonikotzat. Lourdes Oñederra

Proposizioak **esplikatzen** digu zer den Gupida, zeina honela defini baitezakegu: besteen zoritxarretik sorturiko Tristura da. Piarres Xarriton

Oroitu du zirrara oso batek hartu zuela orduan, orain, futbola utzi berri duelarik, ezin definitu eta ezin **esplikatu** duen zirrara. Joan Mari Irigoien

Orbita haiek, beren sinpletasunean eta beren xumetasunean, guztia **esplikatzen** zitean, epizikloetarat eta eszentriketarat jo gabe. Joan Mari Irigoien

Ondotik joan zen sukalderaino, aztoraturik, **esplikatuz** haren mutilak zein kezkatuak ziren haren ausentziarengatik. Elena Touyarou

Horrelako existentzia, alabaina, betiereko egiaren itxuran ulertzen da, gauzaren esentzia bezala, eta ondorioz ezin da **esplikatu**, ez iraupenaren ez denboraren bitartez, lehenik eta azkenik gabeko iraupena bururaturik ere. Piarres Xarriton

Ikusten dugu, bada, Izpirituak aldaketa handiak jasan ditzakeela eta betegintzarre handiagora nahiz tipiagora iragan daitekeela, eta pasio hauek **esplikatzen** dizkigute Poztasunaren eta Tristuraren afektuak. Piarres Xarriton

Utzidazu **esplikatzen**. Iñaki Mendiguren

Esplikatzen zail den gauza da hori, baina behin baino gehiagotan gertatu da dagoeneko. Juan Garzia

Hain da abstraktua eta **esplikatzen** zaila. Iñaki Segurola

Bazkaltzen dugun bitartean **esplikatuko** dizuet zer egin behar dugun eta nola. Joxemari Iturralde

Adituak ez dira gai **esplikatzeko** bat-batean hontzek zergatik aldatu dituzten lo-ohiturak. Iñaki Mendiguren

Gauzen izaera zein arrazoiren arabera gobernatzen den eta beren efektu horiek nola eragiten dituzten **esplikatzeko**. Santiago Iruretagoiena

Quark-ak Gell-Mann zeritzan batek asmatu zituela 1964an, quark izen hori berori barne, jakina (nola asmatu bestela?), eta, diotenez, espektroskopia hadronikoa izeneko gauza bat **esplikatzeko** beste erremediorik ez zuelako, etsi-etsian. Iñaki Segurola

Atzealdetik, Rekexo ohartu zen Raukina ezpainak ari zela mugitzen, bere baitarako zerbait **esplikatzen** arituko bailitzan, baina ez zuen ezer esan. Joxemari Iturralde

Ez baitago **esplikatzerik** zergatik gorputz haiek beste xumeok baino aisago jareiten eta jausten diren. Joxe Austin Arrieta

Ez zait atsegin honela hitz egitea, baina, zer erremedio!, bada zerbait **esplikatu** ezina, ezin dut besterik uste, nolabait ere jakinaren gainean nengoela jaio nintzen mundura. Karlos Zabala

Azken finean, irudiaren osagai jakin bakoitzari dagokionez, kognizioaren modu oso orokorrek nola jokatzen duten **esplikatzean** datza psikologia kognitiboa. Josu Zabaleta

Arrazoiz dio emakumeak seme edo alaba bat galtzen duenak atsekabe infinitua behar duela sentitu, Job santuarenaren parekoa; baina beharko luke gehitu, beharbada, are jasangaitzago dela atsekabe hori, inork **esplikatzen** ez dakien errudun-sentimena itsasten zaiolako estu, semea edo alaba galdu duenak atzera egin nahi bailuke. Imanol Zurutuza

Ibarretxek eman beharko ditu, inoiz emango baditu, hanka sartze oraindik **esplikatu** gabearen nondik norakoak. Berria - Euskal Herria

«Egunero mundua **esplikatzen** ari zaizkit komunikabideak», esan zuen Igerabidek, «egunero mundua **esplikatzen** ari zait zientzia, Egunero mundua **esplikatzen** ari zait erlijioa, egunero mundua **esplikatzen** ari zait artea... eta lehengoan jarraitzen dut; agian nahasiago; eta gaixo, jakin-minez gaixo, zentzu apur baten egarriz gaixo». Berria - Kultura

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Jadanik **esplikatu** ditugun afektuen definizioen arabera, argi dago afektu guztiak Desiratik, Poztasunetik edo Tristuratik sortzen direla. Piarres Xarriton

Baina nola **esplikatuko** nion, neronek ere ez bainekien zer gertatu zen. Karlos Zabala

Nola **esplikatzen** duzu arrakasta? Berria - Kultura

Horrela **esplikatzen** dira, kasu, Andaluziako patioak edo Alhambra bezalako jauregiak, fatxadarik eta ardatz nagusirik gabeak. Bernardo Atxaga

Bere aburuz lapurtu egin zioten jertse hura, nahiz eta ezin zuen ongi **esplikatu** nola izan zitekeen halakorik. Joxemari Iturralde

Horrek **esplika** dezake hobeki nola Georges Moustaki eta Renaud kantariek, eta Florence Delay baiones idazleak, parte hartzen duten sustengu multzo horretan. Herria

Globalizazioaren analisiak oso argi **esplikatzen** ditu garraioen kostuaren beheranzko joera eta trukeen liberalizazioa. Koro Navarro

Xeheki **esplikatuko** digu, euskal konpositoreek munduan gaindi ukan dituzten harremanak eta zer-nolako arrakasta bildu duten. Herria

Hausterrek **esplikatzen** dik hau ondo, ezta Hauster? Iñaki Iñurrieta

Ezin diat hobeto **esplikatu**, baina gauzak hola dituk. Anton Garikano

Ez baita erraz **esplikatzea**, bertzenaz, nola egon zitekeen, utzi zizkidan liburuen artean, *Gero*-rekin baterat, Erasmoren *Enchiridion militis christiani* liburua ere. Joan Mari Irigoien

Honek, Sophie nondik ezagutzen duen xeheki **esplikatu** ondoan eta Txominen irakaslea dela azaldu ondoan, harira etortzen dira. Eneko Bidegain

Nahiago zuen aurrena Maddalenek dei ziezaion eta horrela gero berak lasaiago **esplikatuko** zion gertatzen zena. Joxemari Iturralde

«Sartzen du» diot, nolabait **esplikatzeko** bizimodu horrek oso erritmo eta maila desberdinak dituela, beste gehiengoarenarekin alderatuz. Berria - Kirola

Horregatik, nolabait irtetearren, idatziz **esplikatuko** niola agindu nion, eta berak, begiak dirdiran orduan ere, eskertuko zidakeela esan zidan. Ramon Saizarbitoria

Harry xuxurlaka **esplikatzen** hasi zitzaion, baina une hartantxe zuzendaria zutitu egin zen hitz egiteko, eta Harry isildu egin zen. Iñaki Mendiguren

Inori otu ote zaio sekula, holandesen txirrinduzaletasuna arrazialki **esplikatzea**? Joxe Azurmendi

Egokitzapen-fenomeno horiek kimikari dagokion partetik baizik ez dira **esplikatzen** teorikoki (errodopsina berriro osatzea). Josu Zabaleta

Orduan lehengusuak demo edo delako hori zer den **esplikatu** zidan serio-serio: [...]. Patxi Iturritegi

Bi hitzez **esplikatzen** dit artzainak bere ardiak bordara eramaiten dituela, goizeko alha egina delakoan. Piarres Aintziart

3 (da aditz gisa)

-Eta nola **esplikatzen** da nahaste-borraste hori? Ez dakit ondo **esplikatzen** naizen. Txillardegi

4 ***kaka esplikatu*** hutsalkeriak azaldu.

Beti **kaka esplikatzen** aritzen garela. Joxerra Garzia

Entretenimendua, informazioa eta pertsuasioaren arteko bereizketa aldarrikatzen tematuta, **kaka esplikatzen** ari gara. Joxerra Garzia

Orain artekoan esateko askorik izan ez eta sarritan itzulinguruka ibili behar izan dut **kaka esplikatzen**. · Filologoa erotu egiten da jardun merkearekin, solas barren-huts **kaka**-esplikatzailearekin. Patxi Zubizarreta

5 ***ezin esplikatuzko*** *izlag*

Horixe sentitzen du berak, kontzientziarik gabe, eta **ezin esplikatuzko** gauza bezala, horrenbestez: baina hain lazgarriro sentitzen du non ez baitu pentsatzen ere bere buruari edo besteei azaltzeko gauza izan daitekeenik. Josu Zabaleta

Ezin esplikatuzko zerbait gertatu zitzaidan: ene izaite guztia inarrosiz, bospasei segundoz, bozkarioak zorigaitzari gaina hartu zion! Daniel Landart

Denek atxikiko dugu gogoan lehen harremana, plazer handi bat, pilpira bat bihotzean, **ezin esplikatuzko** berotasun bat, segur, bihotzak behar duela untsa lotua. Herria

Batzuetan uste izaten da larrialdi gaitz bat dela infekzioa, zikinarekin edo gaitzarekin kontaktuan egonda edo **ezin esplikatuzko** zori txar batek eraginda sortzen dena. Irene Aldasoro

Izumenezko sentipen ikaragarri batek guztiz menderatuta, **ezin esplikatuzkoa** baina ezin pairatuzkoa baitzen, oheko arropak kolpetik kendu (zeren konturatzen bainintzen ez nuela gau hartan lo gehiagorik egingo), eta gelan barna atzera eta aurrera presaka ibiliz saiatu nintzen murgildua nintzen egoera errukarri hartatik ateratzen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabera esplika (3); **batek esplikatu** (3); **berak esplikatu** (4); **dela esplikatu** (5); **dela esplikatu zuen** (4); **den esplikatu** (3); **dena esplikatu** (7); **du esplikatu** (3); **esplika daiteke** (7); **esplika daitezke** (4); **esplika dezake** (7); **esplika ezazu** (3); **esplika lezake** (3); **esplika zitekeela** (3); **esplikatu ahal** (5); **esplikatu behar** (24); **esplikatu behar izan** (6); **esplikatu beharko** (3); **esplikatu beharrik** (6); **esplikatu du** (27); **esplikatu dute** (3); **esplikatu egin** (5); **esplikatu egin behar** (3); **esplikatu eta** (3); **esplikatu nahi** (9); **esplikatu nahian** (3); **esplikatu nion** (9); **esplikatu nola** (5); **esplikatu zer** (4); **esplikatu zidan** (14); **esplikatu zion** (22); **esplikatu zion bere** (4); **esplikatu zuen** (35); **esplikatua da** (3); **esplikatuko diat** (4); **esplikatuko digu** (3); **esplikatuko dizut** (5); **esplikatuko du** (3); **esplikatuko luke** (3); **eta esplikatu** (12); **ezer esplikatu** (3); **ezin esplika** (7); **ezin esplikatuzko** (6); **hori esplikatu** (5); **horrek esplika** (5); **horrek esplika dezake** (3); **horrek esplikatuko** (3); **nekez esplika** (4); **nola esplika** (6); **nola esplika daiteke** (3); **nola esplikatu** (9); **nola esplikatuko** (3); **ondo esplikatu** (3); **ongi esplikatu** (5); **teoriak esplikatu** (3); **zela esplikatu** (3)

bat esplikatzen (3); **batek esplikatzen** (3); **bidez esplikatzen** (4); **dakit ondo esplikatzen** (3); **dena esplikatzen** (10); **du esplikatzen** (3); **egunero mundua esplikatzen** (4); **esplikatzea nahi** (3); **esplikatzea nahi nuke** (3); **esplikatzeko eta** (5); **esplikatzeko zer** (3); **esplikatzen ahal** (12); **esplikatzen ahal daukuzu** (4); **esplikatzen ahal diguzu** (4); **esplikatzen ari** (10); **esplikatzen ari zait** (4); **esplikatzen da** (12); **esplikatzen dena** (3); **esplikatzen die** (3); **esplikatzen dira** (3); **esplikatzen dit** (3); **esplikatzen ditu** (9); **esplikatzen du** (26); **esplikatzen duen** (6); **esplikatzen duena** (4); **esplikatzen dute** (6); **esplikatzen duten** (4); **esplikatzen duzu** (4); **esplikatzen ez** (4); **esplikatzen hasi** (6); **esplikatzen naizen** (3); **esplikatzen zion** (3); **esplikatzen zituen** (4); **esplikatzen zuen** (8); **eta esplikatzeko** (5); **eta esplikatzen** (9); **ez esplikatzeko** (3); **ezer esplikatzen** (5); **guztia esplikatzen** (4); **hala esplikatzen** (3); **hori esplikatzeko** (4); **hori esplikatzen** (4); **horrek esplikatzen** (11); **horrek esplikatzen du** (6); **kaka esplikatzen** (3); **mundua esplikatzeko** (3); **mundua esplikatzen** (5); **mundua esplikatzen ari** (4); **nola esplikatzen** (13); **nola esplikatzen da** (3); **nola esplikatzen duzu** (4); **ondo esplikatzen** (6); **ondo esplikatzen naizen** (3)

---

esplikatzaile *iz* esplikatzen duena.

Filologoa erotu egiten da jardun merkearekin, solas barren-huts kaka- **esplikatzailearekin** eta hitzekiko gorraizearekin, hau da, esanari esanahia gailentzen ikustearekin. Iñaki Segurola

Zuk erakutsi zenigun, maisu, teoria (fede) merke, erraz, polit eta oro- **esplikatzaileekin** fidakaitz izaten, haien altzo erosoan ez lokartzen. Iñaki Segurola

---

esplikatze *iz* azaltzea, adieraztea; ulergarria egitea.

Esplikatze horri lehiatu naiz zeren eta goizik ohartu nintzen jenden behar bezala argitzeko aizina hartu behar zela, manera ere egokia behar zela gauzen konpreniarazteko bereziki haurrer eta gazter. Herria

---

esplikazino ik **esplikazio**.

---

esplikazio *(orobat **esplikazino** g.er. eta **esplikazione** g.er.)* **1** *iz* azalpena.

Neuk galdetu eta neuk eman **esplikazioa** : [...]. Iñaki Segurola

Zeren han ere **esplikazioak** eman beharko baitzizkien bere ingurukoei. Joan Mari Irigoien

Esplikazioak eskatu nizkionean, erantzun zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Teologo zintzo eta ikasiek bizi osoa eman dutela berau esplikatzen, eta liburutegi osoak idatzi dituztela beren **esplikazioak** esplikatzeko. Xabier Olarra

-Ez da sortu oraindik horri **esplikaziorik** aurkituko dionik -jarraitu du gizonak-. Imanol Zurutuza

- **Esplikazio** bat nahi nuke, mutilak zergatik ez duen jokatu... -esan zion, nire aurrean. Joan Mari Irigoien

Eta, nola **esplikazio** bat zor bainien, osaba Lazaroren historia kontatu nien. Joan Mari Irigoien

Ekintza "inmoral" bat juzgatzen denean, ez baitugu "ulertzen", **esplikazioa** bilatzen dugu. Joxe Azurmendi

Eta ez bila **esplikaziorik** , mugako egoeretan gertatzen diren gauza askok ez baitute **esplikaziorik** . Joan Mari Irigoien

Izango du **esplikazioren** bat, ezta? Xabier Mendiguren Elizegi

Vitruviok bere testuan ematen dituen bere lanari buruzko **esplikazio** eta justifikazio desberdinen artetik bere buruaren autorretratua nabarmentzen da. Santiago Iruretagoiena

Filologoa hitz gordinaren maiteminean etzaten da, interpretaziorik eta **esplikaziorik** behar ez duen maitemin batean. Iñaki Segurola

Ez dagoenak, **esplikaziorik** ez du behar. Joxe Azurmendi

Hala, oro har hitz eginez, idatzi izan du Hanno-Walter Kruftek: "arkitekturako adibideen erakusgaiak dira, kasurik muturrenekoetan **esplikaziozko** testurik gabe ere erraz ager daitezkeenak, eta arkitekturaren teorian sartzen diren parte osagarri bezala hartu beharko direnak. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lorpen horrek, egia esan, ez du **esplikazio** argirik, baina begia beti mugimenduan egotearekin izan dezake zerikusia. Irene Aldasoro

Alde batetik, **esplikazio** sinpleena zegoen: zerbaiten bila joan ziren eta ez zuten aurkitu, bertan ez zegoelako. Joxemari Iturralde

Gaizki erantzuteak **esplikazio** luzea eskatzen du ondoren. Iñaki Segurola

Eskarmentu txarra sobran duenari **esplikazio** lehorretan ekitea itsusia da oso. Iñaki Segurola

Aurreko mendean hogeita hamar saio baino gehiago egin dira, garrantzitsuak, usaimenaren misterioei **esplikazio** zientifiko bat aurkitzeko. Irene Aldasoro

Esplikazio teknikoetan hasi zen Ane orduan, hau zergatik eta hura nola. Xabier Mendiguren Elizegi

Margaret adiskideak **esplikazio** psikoanalitiko atsegingarria ere aurkitu zuen laguntza pertsonalerako liburu haietako batean. Iñaki Zabaleta

Baina euskal arazoari, edo egungo biolentziari, **esplikazio** historikoak bilatzea ere historikoki zentzugabea eta politikoki arriskutsua bilakatuko da. Joxe Azurmendi

Historia osoari **esplikazio** ulergarri bat ematea, gizadiaren jatorria azaldu eta amaiera bat esleituko diona. Iñaki Mendiguren

Neurri handi batean haien jarauntsia da, 98tarrak bitarteko, Espainian gaur arte dirauen joera, fenomeno sozial eta historikoentzat oroz gain **esplikazio** moral edo psikoanalitikoak gustatzekoa (patologikoak, hobe, eta sinplistak badira hobeto). Joxe Azurmendi

Gauza guztietarako izango baitira **esplikazio** erosoak eta aitzakiarik gabeak. Santiago Iruretagoiena

Izaerari ezin izango zaio fisikarien irakatsietan benetako **esplikaziorik** aurkitu baldin eta gauza hauetan azaltzen diren kausak, nola eta zergatik diren, diren bezalako, ez badira oso arrazoi zehatzekin frogatzen. Santiago Iruretagoiena

Ea taxuzko **esplikazioren** bat botatzen hasten naizen. Iñaki Segurola

Ez da **esplikazio** erabatekorik aldaketa horretarako, baina baliteke bihotz-taupadak, odol-presioa eta arnas-erritmoa gehitzeak muskuluetara oxigeno gehiago helarazten laguntzea, eta, hartara, hornidura eta eskaria orekatzea. Irene Aldasoro

Azken **esplikazio** honek nahikoa lasaiturik utzi ninduen eta une batez ahaztu egin nintzen erabat arazoaz. Joxemari Iturralde

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oro har, ez gara konturatu fonema gabe galtzen dugun **esplikazio** gaitasunaz. Lourdes Oñederra

Fonetika Historikoaren lanak ahanzturaren zakuan galdu dira, eta fonologiak **esplikazio** ahalmen asko galdu du horrela. Lourdes Oñederra

Arazo horrek ongi erakusten du nola fonologiak maiz hartzen duen fonetika fonologiaren gauzatze soiltzat (eta ez eragile edo **esplikazio** -iturritzat). Lourdes Oñederra

Haur bati, deus galdetzeko gogoa egin baino lehen, **esplikazio** mordo bat eman ohi zaio: hau hola-ta-hola da, hori horregatik edo hargatik. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere esplikazioa (4); **beste esplikazio** (3); **du esplikazio** (3); **esplikazio bakarra** (5); **esplikazio bat** (8); **esplikazio baten** (3); **esplikazio eman** (4); **esplikazio guztiak** (4); **esplikazio honek** (3); **esplikazioak eman** (8); **esplikazioak eman beharko** (3); **esplikazioak ematen** (5); **esplikazioak eskatu** (3); **eta esplikazio** (3)

---

esplikazione ik **esplikazio**.

---

esplikaziotxo *iz adkor* esplikazioa.

Hor atzean idatzi den norberanismo hitz eder eta pillosopiko horrek beharko du, segurutik, **esplikaziotxoren** bat. Iñaki Segurola

---

esplizitatu, esplizita(tu), esplizitatzen du *ad* esplizito bihurtu.

Esplizitatu, baina ez tematizatu, zeren hiru baitira bere arrazoimenari dagozkion ezaugarriak. Piarres Xarriton

Honek zerikusirik ez du hizkuntza bat eranskaria edo malgukaria izatearekin, baina Unamuno-k beti **esplizitatzen** duen arrazoia hau da. Joxe Azurmendi

Gizakia substantzia horren modu bezala pentsatzen badugu, bere arima *in actu* existitzen den gorputz baten ideia delarik eta "eduki eta iraunaraztea" "etengabe jainkozko izatasunaren baitan etengabe egotea eta jarraitzea", **esplizitatu** beharrekoa. Piarres Xarriton

«Komunikabide batzuek Aralarri **esplizitatu** gabeko beto informatiboa» egiten diotela ohartarazten du, gainera, zirriborroak. Berria - Euskal Herria

Bere pertzepzio imajinatibo propioei atxikitzean ez du bere esentzia ezagutzerik lortzen: **esplizitatu** nahi den horixe hain zuzen ere. Piarres Xarriton

Aitzitik, bere existentziari eustera jotzen dute eta bere esentzia eratzen duten ahalmen-maila **esplizitatzera**. Piarres Xarriton

---

esplizitazio *iz* esplizitatzea.

Jainkoarekin edo naturarekin batzean eta arimak substantzia jainkozkoarekiko duen dependentziaren **esplizitazioan** datza dohatsutasuna edo salbamena. Piarres Xarriton

Giza jardunaren azpian datzan zentzuaren **esplizitazioak** ez dauka izaki goren (teologia) bati buruzko diskurtsoaren erarik. Piarres Xarriton

Pentsamendu hau oraindik Bilbokoaren jarraipena eta **esplizitazioa** kontsidera genezake. Joxe Azurmendi

Txikiaren biografia-lan bakanetan arakatuz gero, lekuko batek baino gehiagok dio Eustakiok garbi zuela borrokan hilko zela: arriskuaren onarpentzat har liteke hori nahi bada, jokabide suizida baten **esplizitaziotzat** bestela, edo estatuarekiko gatazka armatuak lekarkiokeen paradero makurra ezagutzen zuelako seinaletzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Guztiak gauza beraren izenak dira: norbera den horren ezagutza eta **esplizitaziorako** oinarriak ezartzearenak. Piarres Xarriton

---

esplizito ik **esplizitu**.

---

esplizitoki ik **esplizituki**.

---

esplizitu *(ETCn **2.175** agerraldi; orobat **esplizito** ETCn **50** agerraldi) izond* **1** ageriko esnahia duena; zehatz eta argi adierazi dena.

Subjektuaren eta objektuaren harremanei buruzko kontsiderazioek zientzia-ezagutzari buruzko ikerketa **esplizitua**, gehienetan, ezagutza bisualaren (visual representation) koordenatuetan soilik bideratzea inplikatzen dute. Askoren artean

Iaz Estrasburgon ginelarik sostengu **esplizitua** jaso genuen Euskal Herriko diputatu batengandik eta Katalunia Iparraldeko diputatu batengandik ere. Berria - Mundua

Nabarmenaraz daitezke, halaber, gertaerei, erakundeei, jarduerei buruzko erreferentziak - **esplizituak** nahiz ez-. Xabier Arregi

Errazagoa baita edonon pentsamendu horren aldeko apologia **esplizitua** aurkitzea baino, ikuspegi horren kontrako kritika aurkitzea. Iñaki Heras

Adosten duen kontratu-mota, **esplizitua** edo inplizitua, lanean diharduen taldearekin. Xabier Arregi

Iraken kontrakoa ere bai, modu **esplizituan**. kompromisoa hartzen dute eragile artistikoei ezarritako zentsura, jazarpen, boikot eta mehatxu mota oro modu **esplizitu** eta puntualean gaitzesteko. Berria - Harian

Askoz argiagoa zen, askoz **esplizituagoa**, aurresuposizio adierazi gabeek ez zuten han hainbesteko lekurik. Xabier Olarra

Adin tarte honetako lehen urteetan joko erotikoak **esplizituagoak** dira. Berria - Euskal Herria

Errealismo sozialista bera ere, errealismo guztietan teorizazio **esplizituena** izan duena, hain zuzen, kanon jakin batzuen mende zegoen. Josu Zabaleta

Rossetti-ren koadroak, beren gai **esplizituaz** aparte motibo sinboliko edo literario jakin baten adierazpen direnean ere, maitasunaz ari dira beti. Ramon Saizarbitoria

Ikaste **espliziturako** lobulu tenporalen erdialdeko sistemaren osotasuna beharrezkoa bada ere, ikaste inpliziturako bide primitiboago eta lausoagoak erabil daitezke. Xabier Olarra

Metafora guti zen nire lan **esplizitu** samarrean. Aingeru Epaltza

Halako lesioa duenak galdua du egintza eta gertaera berriei buruzko informazioa bereganatzeko ahalmena: horien oroitzapen **esplizitu** edo kontzienterik ez dago hortik aurrera. Xabier Olarra

Sexu **esplizituzko** eszena mordoxka bat, indarrez eta abileziaz idatziak. Berria - Kultura

· Hortik segitzen da lege zibil orok zigorra daramala bere baitan, **esplizitu** edo inplizituki. Esteban Antxustegi

2 (adizlagun gisa)

Errealitatearen ezagutza interno hori (pentsamenduen edukia) **esplizitu** egiteko bidea da hizkuntza. Askoren artean

Nahikoa lan omen zuen bere bizimoduaren sinpletasunari eusteko eta gauzak argi eta **esplizitu** egiteko. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esplizitu eta** (3); **esplizitua edo** (3); **esplizitua edo** (3)

---

esplizituki *(orobat **esplizitoki** g.er.) adlag* era esplizituan.

Pentsamendu oro, ikusmenaz baliatzen dena ere salbuetsi gabe, hizkuntzaz baliatzen da **esplizituki**. Josu Zabaleta

Ezin genuen burutik kendu aitaren bila zebilela, nahiz eta sekula ez zigun argitu ahal izan zer zebilen, eta, jakin ere, berak ez zekien **esplizituki** zer galdu zuen. Xabier Olarra

Apostasia bataioko sakramentuen bidez «ustez jaso diren» Eliza katolikoaren dogma eta sinesmenei **esplizituki** uko egitea da. Berria - Harian

Lan akademiko batean, corpusean edo garapenean aurkeztutako argudioen ondorioak **esplizituki** agertu behar dira. Askoren artean

Haneke ez da bere kezka edo ardurak **esplizituki** islatzen dituen horietakoa. Berria - Kultura

Kategoria horiek guztiz orokorrak direla ikusi dugu, eta, horregatik, inplizituki edo **esplizituki** erabiliak izaten dira izatearen edozein esparruri buruzko teoriak eraikitzen dituguneau. Askoren artean

Euskal gizarteak erabakitzen duena erabakitzen duela, gure asmoak Madrildik eta Europatik geldiaraziko dituztela ohartarazten ari dira, oso **esplizituki** gainera. Berria -

Euskal Herria

Gauzen izaeraz liburuaren gaurko irakurleak bi inpresio jasaten ditu ezinbestean: zalantza, filosofiako tratatu bat bertsoz idatzita aurkitzearen aurrez, eta ezustea, atomismoa, hots, oraingo fisikaren ikuskera, dagoeneko antzinako munduan hain **esplizituki** eta biribilki formulatua izanaz. Xabier Amuriza

· Hortik segitzen da lege zibil orok zigorra daramala bere baitan, **esplizitu** edo inplizituki. Esteban Antxustegi

---

esploradore 1 *iz* esploratzailea.

Izotzetako esfingea ikustera ailegatu ziren Arthur Gordon Pym eta Dirk Peters nabigatzaileen menturak aipatuko dira, eta konpas guztiak erakartzen dituen hegoaren puntu imajinarioan bandera landatu nahi zuten Robert Falcon Scott eta Roald Amundsen **esploradoreen** elezaharra. Joseba Sarrionandia

Esploradoreak berak idatzi zuenez, taldekideek gizaki baten irudia ikusten zuten beraiei segika, zinezkoa zirudiena eta inola ere, ezta eszeptismoaren poderioz ere, uxatu ezin zutena. Bernardo Atxaga

Aire iluneko esklabo-saltzaileak, urre-bilatzaileak, drogamenpekotasun anitzek jotako **esploradoreak**, buru-txikitzaileak, hegaztien zirinen kontrabandoan zaildutako patibularioak. Jon Alonso

Garai txarrak **esploradoreentzat**. Harkaitz Cano

Joan zen, bai, Grosrouvre hantxe Amazoniaraino, baina orain nik egin behar, lantegi-zulo honetan, **esploradore**-lanak! Jon Muñoz

2 irud/hed

Hiztegien **esploradore** bihurtu ginen, euskarazko hiztegirik ez zegoen arren eta erdarazkoetan ere berba berdeen azalpenak minimoak ziren arren. Joseba Sarrionandia

---

esploragai *izond* esploratzeko gaia.

Emakumeengandik, gorputza, **esploragaia**, konkistagaia. Lourdes Oñederra

---

esploratu, esplora(tu), esploratzen 1 du *ad* herrialde edo eremu bat ibili, ezagutzeko edo aztertzeko.

1721etik aurrera, daniarrak jarri ziren Groenlandian bizitzen, eta mendebaleko itsasertza **esploratu** zuten. Bernardo Atxaga

Urtarrilean esan zuen gizakia llargira itzuliko zela 2020 baino lehen, eta Marte **esploratzeko** basea bertan eraikiko zutela. Berria - Gaiak

Transbordadore espazialak alde batera utzi eta espazioa **esploratzeari** ekingo dio NASAk. Berria - Gaiak

Goazemak toki hau **esploratzera**. Koro Navarro

Orain bazuen gogamenaren ibilaldietan paseatzeko edo **esploratzeko** erabil zezakeen antzoki edo ibiltoki alegiazko bat, alderdi berriak, ikuspegi berriak hartzeko, edonora begiraturik ere. Xabier Olarra

Esploratu gabeko leku bat, eta baita gutxitan bisitatzen den leku bat ere, ez dago aurkitzerik Parisen inguruko baso edo arboladietan. Koro Navarro

Mundua -lur eta itsaso guztiak- **esploratu** eta deskubritu ditugunean, geure baitara bildu eta bihotz-erraietako eremu psikologikoak ere ezagutu ditugunean, konturatu egin gara edertasunak ez duela eremu jakinik. Anjel Lertxundi

Zer ote zen espazioan barrena zebilen objektu ezezagun hura? Zunda automatikoa? Zientzia misio tripulatua? Eta zer helburu zekarren? Kosmosa **esploratzea**, galaxia mailako frankizia bat ezagutzera ematea, ala Eguzki sistemako hirugarren planeta konkistatzea? Patxi Iturritegi

Ez dinat esaten geroxeago ez naizela itzuliko begi-bistan ditudan bazter eder horiek sakon **esploratzera**, ez niken ezetz esango. Migel Angel Mintegi

Azpillagaren biltegia, han denetik aurkitzen baita, Pandoraren kutxa bat iruditzen bide zaie baserritarrei, mundu **esploratu** gabea eta gauza miragarriz betea. Koro Navarro

2 irud/hed

Orain arte, eremu ezberdinetan **esploratu** eta landu da akordio politikoaren bidea, baina benetako ordua hemendik aurrera hasiko da. Berria - Harian

Mahaiaren proposamena alderdien ekimenaren esku utzi du eta dagoeneko lehen harremanak izan dira aukera hori **esploratzeko**. Berria - Euskal Herria

Jesus Egigurenen azken liburua EAJrekiko balizko akordioa **esploratzeko** saiakera bat da. Berria - Euskal Herria

Kolore-leherketak, mugimendua eta erritmoa **esploratzeko** saioa da. Berria - Kultura

Herriaren normalizazio sozialaren alde sindikatuek zer ekarpen egin ditzakegun **esploratu** behar dugula esan genuen. Berria - Euskal Herria

Alabaina, probetxuz lapur zitezkeen sustantzien ikuspegitik, laboratorio hura lur birjina zen, dena **esploratzeko** zuena. Juan Garzia

Nire garaipenaz segur, izter arteko pasabide heze anarteraino ahantzia **esploratzera** abiatu nintzen, gutizios. Aingeru Epaltza

Ipuina behin betiko bertan behera gelditzen zenean, kontalariaren arnasarekin batera alegia, Burke eta Hare jaunek misterioa **esploratzen** zuten. Juan Garzia

Orain arte epistemearekiko orientazioa izan da **esploratu** dena. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esploratu eta** (3)

---

esploratzaile 1 *iz* esploratzen duen pertsona.

Berehala ohartu nintzen erantzun hura jaulki zuena ez zela **esploratzaile** bat, baizik eta ia mendirik zapaldu gabeko irakasle bilbotar bat, une hartan bertan iparrorratzarekin benetako arazoak zituena. Bernardo Atxaga

Oinean duen plakan hau irakur daiteke: 'Albert Mezigueri, geografiaren **esploratzaile** eta lurralde inoiz zapaldu gabeen konkistatzaileari (1860-18...) Touchagueseko bere herrikideek'. Joxean Agirre

Hazparneko Elgar zentroan, Pierre Vidal **esploratzaile** eta espeleologoaren mintzaldia: "Harpeetako artea lanjerean". Herria

Esploratzaileak bidali zituzten berri bila. Agustin Otsoa

Astiro egiten zuten aurrera, uneoro erantzunaren zain, lerro trinkoagoetan, **esploratzaileak** eta abangoardiako talde txikiak bidaltzea gizonak alferrikaltzea zela ulertuz. Agustin Otsoa

Ez zen **esploratzailerik** edo aitzindaririk agertu kibiktaren bidean. Karlos Zabala

Kolivanen eta Tomsken arteko telegrafo haria tatariarren armadaren **esploratzaileek** moztu zuten. Karlos Zabala

Alexis Iraklievitx Levchine (1798-1879), agronomo eta **esploratzaile** errusiarra. Karlos Zabala

Nadia, **esploratzaile** tatariarrek Irtish ibaiko txalupetan bahitu ondoren, Omskera eraman zuten. Karlos Zabala

Buruzagiak, ur ondoko txabola batean bilduta, Fionnen bila igorritako **esploratzaileen** zain zeuden. Joanes Urkixo

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hogeita hemezortzi urterekin, sasoi betean zegoen, baikorra zen izaeraz, eta eskarmentu handiko gizona iparralde hotzean: **esploratzaile** ona, eta edozein lan eta esfortzu egiteko kemen izugarrikoa. Ez dut ulertzen -esan zuen **esploratzaile** ohiak-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez **esploratzaile** handi bat, baina bai, horrela esan badaiteke, esploratzailegai on bat. Bernardo Atxaga

Miaketa haietan hainbat eta hainbat altxor kausitu nituen, **esploratzaile** begiratuaren antzera goitik behera ikasi, beren xehetasunez ongi jabetu eta zeuden-zeudenean beren lekuan uzten nituenak. Alberto Ladron Arana

Espedizioaren buruan Ernst Schaeffer **esploratzaile** zaildua eta Bruno Beger antropologoa zeuden. Alberto Ladron Arana

Aurrena, Carsten Borchgrevink **esploratzaile** suediarraren albisteak, eta nola arribatu zen 1895ean, lehenengo aldiz, Antarktikara. Patxi Zubizarreta

Esploratzaile espiritual ausart horiek hindu eta Ekialde Urruneko munduak erakarri nahi zituzten kristautasunera. Iñaki Mendiguren

Hala ere, **esploratzaile** buruarin haiei laguntza eskaintzeko prest egon ziren Kalaallit Nunaateko inuitak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horretarainoko zentimetro urrien tartea gainditurik, bakoitza bere kontrarioa ukika ari zen orain, tribu afrikarren bateko **esploratzaile** ahalketiak iduri. Aingeru Epaltza

Ordurako, erabateko **esploratzailea** zen, naturalista ukituren bat gorabehera. Bernardo Atxaga

Kanada iparraldeko lurralde eta itsasoen lehen **esploratzailea**. Bernardo Atxaga

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esploratzaile lana hasten genuen."Iparrorratza ekarri dut", esan zuen Mikelek **esploratzaile** jarrera hartuz eta bere motxilatik kutxatxo bat atereaz. Bernardo Atxaga

K.o. 1723an Pedro Handiaren **esploratzaile**-begiak aurkitu zituen. Iñaki Mendiguren

4 irud/hed

Wright, bere aldetik, estilo berezien **esploratzailea** bihurtu da eta moldeak apurtzen ditu. Berria - Kultura

Aspaldi agortu zen inork zapaldu gabeko eremu berriak deskubritzeko ametsa, baina arteari **esploratzaile** izatea dagokio ekintza artistikoaren porturik eta itsasorik gabeko ontzian. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta esploratzaile (3)

---

esploratzailegai *iz* esploratzailea izatekoa dena.

Esploratzaile handi bat, baina bai, horrela esan badaiteke, **esploratzailegai** on bat. Bernardo Atxaga

---

esploratze *iz* esplorazioa.

Posibilitateen **esploratzea**, eta posibilitateen artean hautua eginez, urratsez urrats, kontakizuna osatu. Iñaki Iñurrieta

---

esploratzear *adlag* esploratzeko zorian.

Mundua, Joseph Conrad-en ustetan, espazio mugagabe bezain kilikagarria izan daiteke, **esploratzear** dauden zuriunez beteriko mapa bat. Patxi Zubizarreta

---

esplorazio **1** *iz* herrialde edo eremu bat ibiltzea, ezagutzeko edo aztertzeko.

Esplorazio haietan aritutako gizon ospetsu askok izen geografiko europarra eman zieten lurralde haietako itsaso, uharte eta lur zatiei: Barents, Bering, Frobisher, Davis, Hudson, Baffin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Etxean atera gabe egon naizen honetan, **esplorazioak** egiten ibili naiz, eta oso gauza interesgarriak aurkitu ditut. Bernardo Atxaga

Geroztik, uharte erraldoiaren **esplorazioetan** aritu zen Knud, eta 1910. urtean inuiten kolonia txiki bat aurkitu zuen ipar-mendebaldean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina sinesten dut estralurtar batzuk badirela oraindik, oraino testuan sartzeko indar egiten dutenak, beren kabuz liburu saltokietan **esplorazioan** dabiltzanak. Ana Urkiza

Hala ere, **esplorazioetan** gertatzen den legez, denboraren joanak begi horiek, mingain hori, adats ederra, ezagunak egiten ditu, ezusteko aurkikuntzak aspergarri. Markos Zapiain

Itsasoaren **Esploraziorako** Nazioarteko Kontseiluaren (ICES) arabera, arrain espezie askoren kopurua «inoizko txikiena» da Europako itsasoetan. Berria - Mundua

George Bush AEBetako presidenteak espazioaren **esploraziorako** eginiko planek NASAren egitasmo zientifikoak dirurik gabe utzi dituztela salatu zuen herenegun zientzialari batzorde batek AEBetako Kongresuan.Lehengoa da space-shuttle edo transbordadoreak ordezkatuko dituen espaziontzi flota berria eraikitzekoa; bigarrena Marteko **esplorazioa**; hirugarrena ilargiarena. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Espazioaren **esplorazio** dotore baten ostean, mutil itsu baten hitzak entzuten ditugu ukimenaren ahalmenaz gogoeta eginez. Berria - Kultura

Garapen emozionalean inbertitzen den guztia bueltan etortzen da: haurra lasaiagoa izango da, **esplorazio** aberatsagoa egingo du, harremanak errazago egingo ditu. Berria - Euskal Herria

Orduak eta orduak ematen nituen Hego Amerikari edo Afrikari edo Australiari begira, eta **esplorazioaren** ederrean galtzen nintzen. Patxi Zubizarreta

Otsabio eta Izarraizko mendietan egin dira sail honek bideratutako azkenaldiko **esploraziorik** gehienak. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Marte, Artizarra, Merkurio eta Jupiter hurbiletik aztertu dituzte hainbat **esplorazio** misiok. Berria - Gaiak

Ekintza aurretik **esplorazio**-txango batzuk egin nituen, Renaultarekin, behar nuena aurkitzeko. haurrarentzat bere testuingurua segurtasun gabea bada, oso zaila izan daiteke haurraren **esplorazio** garaia, haurra gehiago kezkatuko delako segurtasun faltaz hezitzaileak eskaintzen dionaz baino. Iban Zaldua

Espazio horrek lotura estua du geografian "Aurkikuntza Handiak" eta beste alor batzuetan matematikaren aurreramendua eragingo zituen **esplorazio**-kemenarekin. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Artikoko Animalien Erreserba Naturalean «ingurumenarekiko begiruneaz» petrolio **esplorazioak** egitea sostengatzen du. Berria - Mundua

Baina argi geratzen da aurrekontu honekin espazio **esplorazioa** (behintzat NASArena) hankamotz geratzen dela. Berria - Gaiak

Historiaren bi atal berri horietan [...] iragana gutxiesteko oinarririk nabariena bat-bateko botere-gehitzearen kontzientzia zen, bai beste gizaki batzuen gaineko boterea, konkista militarretan adierazia, bai izadi fisikoaren gaineko boterea, geografi **esplorazioetan** eta zientzi aurkikuntzetan adierazia. Iñaki Mendiguren

4 irud/hed

Barruaren **esplorazioak** ere baziren, klausura ezkutuz eta misterioz beterik zegoelako, eta hirugarren egunean bertan parte hartu nuen barrutegi itzaltsuak errekistatzen ia gauerdian egin genuen ibileran. Joseba Sarrionandia

---

esplosaketa *iz* esplosioa.

Morfemen, hitzen eta perpausen arteko leherketak baino ez direla, alegia, eta **esplosaketak** non harrapatzen zaituen, horren gorabeheran agertuko zarela haserregaitz edo saminkorrago. Iñigo Aranbarri

---

esplosibo *(orobat **explosibo** g.er.)* **1** *izond* fonetikan, leherkaria. ik **explosibo**.

Hots eta mugimendu banako horiek hartuko dira kontuan soil-soilik; hala, p **esplosiboarekin** datorren r **esplosiboaren** artikulazioa guretzat ez da existitzen, atzemangarria ez delako, edo fonemen katean garrantzirik ez duelako. Isabel Arrigain

Hots **esplosiboen** eta inplosiboen arteko bereizketa. Isabel Arrigain

Egia da edozein fonema izan daitekeela inplosiboa nahiz **esplosiboa** ; baina egia da orobat irekidurak inplosian eta esplosioan duela eragina, zeren zenbat eta handiagoa den hotsaren irekidura, orduan eta ilunagoa gertatzen baita bi mugimenduen bereizketa. Isabel Arrigain

Katemaila **esplosibo** etengabeak bi osagai baino gehiago izan ditzake barne, betiere irekiera txikiagotik irekiera handiago batera joaten baldin bada (k< r< w< a adibidez). fonologoek izendaturiko goranzko diptongoak ez dira diptongoak, multzo **esplosibo** -inplosiboak baizik. Isabel Arrigain

2 irud/hed

Hitz **esplosiboa** da trepanazioa. Unai Elorriaga

---

esplosio *iz* kontsonante herskarien irekieran, aire irteera bat-batekoa.

Itxierari inplosioa deitu zaio, eta irekierari **esplosioa** ; p bati inplosiboa (p>) edo esplosiboa (p<) esaten zaio. Isabel Arrigain

Lehen inplosio baten eta lehen **esplosio** baten artean desberdintasun hau dago: **esplosioak** , ahoaren kokaera neutroa eragiten duenez, ez du hurrengo momentua oztopatzen; inplosioak, aldiz, beste edozein **esplosioren** abiapuntu izan ez daitekeen kokaera jakin bat sortzen du. Isabel Arrigain

---

esplotakuntza *iz* baliabideez mintzatuz, ustiatzea.

Oraindik orain, pinu eraisten dabilen basomutil gazte bati irakurria diot bere land-roverrean "baso **esplotakuntza"** duela lanbide. Iñigo Aranbarri

---

esplotatu, esplota(tu), esplotatzen **1** du *ad* pertsonez mintzatuz, norberaren probetxurako bidegabeki erabili.

Ikeak **«esplotatu** » egiten duela salatu zuen atzo LABek, altzarien multinazionalak Barakaldoko Megaparken daukan dendaren aurrean. Berria - Ekonomia

Horrelakoak egiteari uzteko eskatzen diote horregatik Asegarceri «gutxi batzuek mutiko batzuk **esplotatuz** poltsikoak beteko dituztelako bestela», eta horrelakoak«salaketzeko» eskatzen diote EPELi. Berria - Kirola

Gizonak emakumea erabili eta **esplotatu** egiten zuen, eskulan merke eta produktiboa baitzen. Luis Elberdin

Mundu guztian berdin-berdin gertatzen duk, poliziak jipoitu egiten gaitik, aberatsek **esplotatu** egiten gaitiztek euren soldata kaskarrekin. Lopez de Arana

Arizmendiarreta apaiza bezalakoa izatea sartu zitzaion osaba Xabierri kaskoan, langileria **esplotatuko** ez zuen fabrika mordoxka batekin amets egingo zuen gizajoak Behin eta berriz esaten nion nire anaiari liburu on bat idatzi beharko zuela aita ero eta nagusiek **esplotatua** zuten mutikoaren istorioa azaltzeko. Mikel Hernandez Abaitua

Manhattango bankuetan lapurtzen hasi behar dute orain Afrika, Hego Amerika edo Asiako herritar pobreek, beraien herrialdeen ondareak lapurtu eta herritarrak **esplotatu** eta askotan izutzen dituzten multinazionalen terrorismoaren kontra egiteko? Berria - Mundua

Ez **esplotatu** behartsua, behartsu dela eta, ez zanpatu gizarajoa auzitegian. Elizen arteko biblia

Gazte honek **esplotatu** egiten zuen mailegu-emailea. Josu Zabaleta

-Ez haut **esplotatu** nahi. Eskarne Mujika

Bi anai-arreba atxilotu dituzte emakumeak **esplotatu** eta euretaz aprobetxatzeagatik. Berria - Euskal Herria

Ezin da pertsonekin trafikatu, ezta sexualki **esplotatu** ere. Berria - Harian

2 irud/hed

Arriskutsua da, estupidoa ez esateko, Alsaziakoa bezalako istilu partikular bat historia unibertsalaren paradigma gisa, are gizatasunaren funtsaren filosofia oinarrizkoaren arazo moduan **esplotatu** nahi izatea. Joxe Azurmendi

3 (era burutua izenondo gisa)

Haur **esplotatuak** Hego Amerikan zeudela uste genuen. Gotzon Garate

Prostituten patua erabakita zegoen; emakume **esplotatu** haiek gerrako biktima izan ziren, beste asko bezala: zapaltzaileen gozamen hila piztu eta min bizia itzali zutenak sarraskitu zituzten askatzaileek, Dien Bien Phun nagusitu zirenean. Berria - Mundua

Maiatzaren Lehenak langile estatubatuar guztiak ez sektore **esplotatuenak** bakarrik kontzientziatzen has daitezen balioko duela uste dute AEBetako zenbait sektorek. Berria - Euskal Herria

Marxek zioen bazegoela langile **esplotatu** bat baino okerragoa den zerbait: lanik gabeko langile bat. Iñaki Heras

Gizarte honetan klase sozialak daudela, eta, ondorioz, esplotazioa ere hor dagoela, klase batzuk esplotatzaileak direla eta beste batzuk, berriz, **esplotatuak** . Iñaki Heras

Esplotatuak eta baztertuak sentitzen dira herritarrak. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **esplotatu egiten** (7); **esplotatu nahi** (3); **esplotatzen dituzten** (4)

---

esplotatzaile *izond/iz* langileak eta kidekoak esplotatzen duena.

Osaba zapatari **esplotatzaileak** ez zidan inoiz atsedenik ematen, eta etengabe egiten zituen zapatak ni batera eta bestera ibilarazteko. Pello Lizarralde

Paris, baina, kontra zegoen, baldin eta lehenago kolono **esplotatzaileei** kendutako lurren truke Haitik kalte-ordainak ordaintzen ez bazituen. Berria - Mundua

Garbi dago Coca Cola izena daraman fundazio batek munduan zabalduen dagoen edariaren eta agian enpresa **esplotatzaile** handienaren aurpegia garbitu behar duela. Berria - Kultura

Osakidetzak Amaran dituen bulegoetara zuzendu ziren «greban gaude irabazi arte» eta «EAJ eta Osakidetza **esplotatzaileak** » esaldiak oihukatuz. Berria - Ekonomia

Esplotatzailea eta neska-limurtzailea izanagatik, auzoko jendeak ez zion gorrotorik Victoriori. Josu Zabaleta

Gizarte honetan klase sozialak daudela, eta, ondorioz, esplotazioa ere hor dagoela, klase batzuk **esplotatzaileak** direla eta beste batzuk, berriz, esplotatuak. Iñaki Heras

Estatu eta ministro eta politikari guztiak **esplotatzaile** hutsak zirela, **esplotatzaileen** adiskide hiltzaileak. Fernando Rey

Gurasoak galdu dituzten umeek ez dute inongo babesik izaten, eta ondorioz, **esplotatzaileen** eskuetan erortzeko arrisku handiagoa dute. Berria - Gaiak

Neska horrek fabrikan hizketaldi adoretsuak egiten zituen emakume langileak zakur **esplotatzaileen** aurka altxa zitezen. Pello Lizarralde

Etxera engainatuta eramaten dituen neska gaixoen **esplotatzailea** . Josu Zabaleta

Ondorioa izan zen nahikoa ongi ordaintzen ziola, ezin zitekeen esan, berari buruz, besteren lanaren **esplotatzailea** zenik. Jon Alonso

---

esplotazio *iz* pertsonez mintzatuz, norberaren probetxurako bidegabeki erabiltzea.

Injustizia, gerrak, **esplotazioa** , pobrezia, diskriminazioa, marjinazioa. Iñaki Segurola

Erakunde sozialista diogunean, langileen interesen aldeko borrokaren erdian dagoela esan nahi dugu, eta sozialismoa ekarri behar duela, hau da, **esplotazio** eta klase sozialik gabeko gizartea. Rafa Egiguren

Langileei lana ordaindu beharra zegoela, ezinbestean, eta bestela **esplotazioa** zela, harakinak animaliekin egiten duenaren parekoa. Fernando Rey

Zapalkuntza eta **esplotazioaren** bitartez lortutako diru horren guztiaren zati bat itzultzeko eskatu zitzaionean, bere familiak ez zuen halakorik onartu. Hasier Etxeberria

Gizarte honetan klase sozialak daudela, eta, ondorioz, **esplotazioa** ere hor dagoela, klase batzuk esplotatzaileak direla eta beste batzuk, berriz, esplotatuak. Iñaki Heras

Enpresetan euskara ofizial izan arren langilearen **esplotazioak** lirauke, ez? Itxaro Borda

Zenbait hitz-aspertu egiten nizkien bere lan-indarra saltzen duen langilearen **esplotazioaren** gainean. Fernando Rey

Besoen eta buruaren indarra ugazabari saltzen zitzaiola, gaizki pagatzen zutela, juxtu-juxtuan bizirik irauteko, abereak hiltegira eramatearen parekoa zela **esplotazio** hura. Fernando Rey

Nik **esplotazio** kapitalistaren teoria azaldu nahi nuen. Fernando Rey

Bat-batean aitortuko dizu berak ez duela emakume gazte batez abusatu, ezin eutsizko irritsa baino ez omen zen izan, eta ez du aipatu ere egiten zer sufrimendu eragin duen, aipatu ere ez gertakizun hau **esplotazio** -historia luze baten zatia dela. Oskar Arana

Ez dira maitatzeko libre, eta etengabe daude sexu-**esplotazioaren** arriskuan. Anton Garikano

2 aberasbide bat ustiatzea.

Labore merkatuetan prezioek nabarmen behera egin dutela ikusten dute, ez ordea akuiferoen gehiegizko **esplotazioa**, horiek ezinbestekoak badira ere elikagai horien produkziorako. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gainera Markos noranahikoa zen; igeltsero lanetan ibilia zen, abere-**esplotazio** zein negutegi batzuetan lan egindakoa ere bai. Jon Alonso

Dena aldatu da: artzaintza, artzainen bizimodua, **esplotazioak**, herrien fisionomia, laboreak, basoak... Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
esplotazio eta (4); **esplotazioa eta** (5); **esplotazioaren kontrako** (3); **eta esplotazioa** (6); **eta esplotazioaren** (4)

---

espoleta *iz* bonba edo kideko baten leherketa eragiten duen gailua.

Europan ere gerraren **espoletak** detonagailuan jo du-eta, itxurazko bakea lehertu egin da Alemania Polonian sartu eta Ingalaterrak eta Frantziak hari gerra aldarrikatu diotenean. Edorta Jimenez

---

espoliatu, espolia(tu), espoliatzen du *ad* norbaiti, berea den zerbait bidegabeki eta indarrez kendu.

Eta pentsatzen dute: lapurtu egingo du, **espoliatu**, hil. Esteban Antxustegi

Guztiak pozik gelditzen dira euren burua **espoliatuta** eta hilik ikusten ez dutenean. Esteban Antxustegi

Monasterioa, hutsik, batzuek eta besteek **espoliatuta**, gero eta okerrago zihoan. Martin Anso

---

espoliatzaile *izond* espoliatzen duena.

Esklusibotasuna [...] kontu kaxkarra da eta **espoliatzailea**, gutxienez. Karlos Zabala

---

espoliazio *iz* norbaiti, berea den zerbait bidegabeki eta indarrez kentzea. ik**espolio**.

Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruaren lege proiektuaren metodologia juridikoa **«espoliaziotik** gertu» dagoela salatu du Arabako Enpresaburuen Elkarteko (SEA) idazkari nagusi Jose Manuel Fartok. Berria - Euskal Herria

Bigarren "Urriko iraultzak" (1979), zenbait behatzailek deitu izan duten bezala, Estatu Batuetako inflazio-prozesua eta hartzekodunen **espoliazioa** eten nahi izan zituen. Koro Navarro

Egitasmoak **«espoliazioa»** eta etxebizitzen prezioak «garestitzea» ekarriko lituzkeela ohartarazi zuen. Berria - Harian

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren lege ekimenaren aurka agertu ziren, «etxegileek eta lursailen jabeek behar duten tresna sendotzea ekarriko duelako, geroz eta urriagoa den baliabidearen **espoliazioan**». Berria - Harian

---

espolio *iz* norbaiti, berea den zerbait bidegabeki eta indarrez kentzea. ik**espoliazio**.

Gerra irabazi zutenen **espolioa** jasan genuen, 37 urte luzez Guardia Zibilaren kuartela izan zen ni jaio nintzen etxea. Berria - Kultura

---

espondilartritis *iz* bizkarrezurraren artritisa.

Espondilartritis ankilosanteak, bizkarrezurreko gaixotasun oinazetsu eta elbarrigarria oso, ehun bider inguru aukera gehiago ditu agertzeko genotipo jakin bat daukaten subjektuetan besteetan baino. Juan Garzia

Halakoa da dagoeneko aipatua dugun eritasun baten kasua, **espondilartritis** ankilosantearena. Juan Garzia

---

esponente *iz* erakusgarria, eredua.

Oinarri-esakune hauek baino ez dute ematen, beraz, erregela baterako baldintza eta, nolabait esateko, **esponentea** barnebiltzen duen adigaia; esperientziak, aitzitik, erregelen menpean dagoen kasua ematen du. Ibon Uribarri

Bere **esponentea** (judizio kategorikoarena edo hipotetikoarena) emana izan den edozein ilara, ordea, luza daiteke. Ibon Uribarri

Gure analogia hauek izadiaren batasuna aurkezten dute **esponente** jakin batzuen menpeko agerpen guztien bilkuran, eta **esponente** horiek denbora-hartuemana besterik ez dute adierazten apertzepzioaren batasunari dagokionez. Ibon Uribarri

Gauza berak balio du komunitatean dauden substantziez, agregatuak besterik ez direnez eta ilara baten **esponenterik** ez dutenez, beren ahalgarritasunaren baldintza gisa elkarri menperatuak ez daudelako. Ibon Uribarri

---

esponentzial **1** funtzioez eta kidekoez mintzatuz, berretzaile bat duena.

Funtzio **esponentziala** mirari txiki bat duk, hala eta guztiz ere. Jon Muñoz

-Entzun, entzun, funtzio **esponentziala** ohiz kanpokoa da. Jon Muñoz

2 *iz* funtzio esponentziala.

Esponentziala nonahi aurkitzen diagu, izadian nahiz gizartean: landare baten hazialdian, izurri baten hedaduran, biztanle-multzo baten, erradioaktibitatearen... eta abarren bilakaeran. Jon Muñoz

Zerbaiten garapenaren maila haren garapenaren egoeraren proportzioan dagoenean, **esponentzialaren** usaina dario horri. Jon Muñoz

3 hazkundeez eta kidekoez mintzatuz, denboraren zehar esponentzialki biderkatzen dena.

Merkatu horrek 1960ko hamarraldiaren ondoren izan zuen hazkunde **esponentziala** ezin adostu zen Bretton Woodseko itunen arabera osatutako parekotasun finkoen erregimena mantentzearekin. Koro Navarro

Globalizazioaren eta informazio eta komunikazio teknologia berrien (IKTB) aroan, informazioaren ugaltze izugarria manipulazioen hazkunde **esponentzial** bilakatu da, eta hedabideen bidezko toxikazio kanpaina ere bai sarriegi. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

esponentzialki *adlag* era esponentzialean.

Orain 15 lagun inguruk jarduten dute Inasmeten nanopartikulekin, baina teknologia hori garatu ahala, kopurua **esponentzialki** haziko dela iragarri zuen. Berria - Ekonomia

Ainhize eta bion arteko eztabaidak **esponentzialki** biderkatu ziren. Iban Zaldua

---

espongiforme *izond* esponjaren formakoa. ik **entzefalopatia**.

Lehengo astean entzefalopatia **espongiformea** edo behi eroen gaitza atzeman zioten behi bati Bizkaiko etxalde batean. Berria - Euskal Herria

Urtarrilaren 9an Karrantzako (Bizkaia) ustiategi batean hazitako behi bati Behien Entzefalopatia **Espongiforme** (BEE) gaitza atzeman ondoren, behi horren multzokoak ziren beste 11 abelburuak akabatu zituzten. Berria - Euskal Herria

Elikagai berriek oraingo gaixotasunen areagotzeaz gainera berririk ere ekarri eta jeneralizatuko dute, hala nola salmonelosia, listeria, behien entzefalopatia **espongiformea** (Creutzfeldt-Jakoben gaitzaren aldaki berria), *Clostridium prefringes* bakterioak, *Staphylococcus aureus*ek, *Mykobacterium*ek eta bestek eragiten dituztenak. Edorta Agirre

Nafarroan bi behi aurkitu dituzte lehen aldikotz, burtxoroen enzefalopatia **espongiformearen** gaitzarekin analisen arabera. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **behien entzefalopatia espongiformea** (3); **behien entzefalopatia espongiformeak** (4); **entzefalopatia espongiformea** (9); **entzefalopatia espongiformea edo** (5); **entzefalopatia espongiformearen** (3); **espongiformea edo behi** (5)

---

esponja **1** *iz* belakia.

Eta korapiloak metalezko kableen artekoa izateari uzten dio une batez, artilezko harien artekoa izateko, korapilo arina, hodeitsua, **esponja** baten antzekoa, amona batek jertsea egiteko gordetzen duen artile mataza. Lander Garro

Harraskan goizeko ontziak garbituko ditut, erabilerak suntsitutako **esponjarekin**, eta kolakaoaren marroiak kutsatuko du, estoldaren isuriak ibaia bezala. Lander Garro

Hitzik egin gabe joan zen urmaelera, hitzik gabe jarri zuen ura sutan berotzen, eta hitzik gabe jarri zidan pertza neure aurrean, **esponja**, xaboi eta toailaren ondoan, aurreko egunen antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

2 irud/hed

Esponja zurrupatzailea da bertsolaria, ingurukoari adi eta xurgatzeko prest. Andoni Egaña

Glandeak, estalgarriak, zurtoinak, zuztarrek, barne ezpainek, himenak eta ehun zutikorrek osatzen duten organo konplexu guztia da klitoria, eta hor sartzen dira, halaber, klitoriko erraboilak, uretrako **esponja**, perineoko **esponja**, gihar genitalak, nerbio bukaerak eta odol hodien sarea. Luis Elberdin

Esponja-emakumea, basoak husten azkarrena Nerbioi alde honetan. Sonia Gonzalez

3 ***esponja-harri***

Ondorioz, badirudi orain **esponja-harria** edo Ponpeiako apar-harria deitzen den hori beste mota bateko harria kiskali zenean etorri zela era honetako kalitatea izatera. Santiago Iruretagoiena

Handik ateratzen den motako **esponja-harri** hori, ordea, ez da leku guztietan aurkitzen: Etna inguruan eta grekoek *Catacecaumene* deitzen duten Misiako mendietan bakarrik, edota era honetako propietateak dituzten beste leku batzuetan bestela. Santiago Iruretagoiena

---

esponjatxo *iz adkor* esponja xumea.

Betazalen gainetik pasatu duzu **esponjatxoa**, leun, astiro, ondo egiteko behar den patxada hartuta. Sonia Gonzalez

Egiazki, makillatzeko **esponjatxoak**, tolestuta, eta lurrinentzat ontzi txikiekin apainduta. Berria - Kultura

---

esponsor *(orobat* ***espontsor****)* *iz* babeslea, laguntzailea, esponsorizatze lana egiten duena.

Esponsorrak jarraituko duen, ez, ez dakigu. Berria - Kirola

Azken urteotan Euskal Herrikoa antolatzeko **espontsorra** bilatzen ari ginela, pentsatu genuen sari bezala bidai bat ematea. Berria - Kultura

---

esponsorizatu, esponsoriza(tu), esponsorizatzen du *ad* ekonomikoki babestu.

Egun, Ingalaterran, eskola publikoak diru pribatuari esker ibiltzen dira, haiek **esponsorizatzen** dituzte, jakien industriako multinazionalek. Berria - Euskal Herria

---

espontaneitate *iz* espontaneoa denaren nolakotasuna.

Beharbada, horrela, **espontaneitatea** galtzen da, jarioari uko egiten zaio, eta zuzenketaren unea zentral bihurtzen da: hitzei behin eta berriro bueltak eman, zuzendu, kendu... bisturi lana, finean. Ana Urkiza

Greba eta iraultza bera ere, izaki biziduntzat hartzen zituen: herriaren nahia eta langileriaren **espontaneitatea** lehenesten zizkion edozein zuzendaritzak ezarririko diseinuzko borrokari. Markos Zapiain

Umeenaren antzeko **espontaneitate** eta gardentasuna izan lezakete halako gaixoek beren erreakzioetan, berehalako eta aurrez pentsatu gabekoak izaten baitira. Xabier Olarra

Espontaneitatearen eta fantasiaren beharra bada hemen. Ana Urkiza

Ondorioz, galdu egin dut lehenagoko **espontaneitatea**. Ana Urkiza

Espontaneitateak ez du ukatzen arrazoia, baina farre egiten dio honen uste osoari. Patziku Perurena

---

espontaneo *izond* berez, kanpoko eraginik gabe, gertatzen dena.

Erabat gauza **espontaneoa** izan zen, herriaren leherketa bat, buruzagirik gabe, herri askotara zabaldu zena. Pako Aristi

Horregatik gizonen gauzak arretaz begiratzen dituenari esperientziak erakusten dio bilera **espontaneoak** gertatzen direla, edo elkarren beharrak bultzatuta, edota ospea lortzearren. Esteban Antxustegi

Alta, aitortu beharrekoa ematen du: hasteko, inbasorerik ez zegoela; gero, herriaren altxamendu **espontaneoa**, elizak eta nobleziak xaxatu eta antolatua izan dela. Joxe Azurmendi

Jakina da neurona orok noizean behin deskarga **espontaneoak** sortzen dituela, sarrera-seinalerik batere gabe. Irene Aldasoro

Mugimendu natural eta **espontaneoa** izan zen, zintzoa eta ondradua. Berria - Kultura

Irratigintza utziko zuela jakinarazi orduko, sinpatia eta esker oneko agerpen **espontaneo** ugari jaso ditu, handik eta hemendik, Laxaro Azkunek. Berria - Kultura

Espero nuen, hala ere, askatuko zela, apika, erakutsiko zidala bere "benetako" nortasun **espontaneotik** zerbait. Xabier Olarra

Barrikadak jarri zituzten, modu **espontaneoan** ». Berria - Euskal Herria

Supituko lanuzte horrek **espontaneoa** zirudien, inprobisatua. Unai Elorriaga

Beraz, kar-kar-kar barre egiteko entrenatu nintzen, lan handia egin nuen, eta, atera kontuak, gaur egun burua atzera bota eta kar-kar-kar baizik ez dut barre egiten, horrelako deus ere ez da benetan **espontaneoa** nigan. Karlos Zabala

Ez da, egiaz, ideia zientifikoa, baina ikuspen-modu bikoitzaren eta ikusmenezko munduarekiko "distantzia psikiko" bikoitzaren ideia hau oso finko dago txertatuta ikusmenezko munduaz dugun esperientzia **espontaneoan**. Josu Zabaleta

2 (izen gisa) zerbaitetan inork eskatu gabe parte harten duen pertsona.

Salya kantatzen hasi zirenean, Dakarren edo Parisen egongo balira bezala, **espontaneo** batzuk agertokira joan ziren Ismailaren edo Sixuren danborren aurrean beren dantza inprobisatzeko. Berria - Kultura

Irene zeharo edanda dago eta lotsagabe dabil dantzan, baina inguruan putre mordoa dauka, ikasle, irakasle zein bestelako **espontaneo**, denak guztiz irtenda. Jon Arretxe

Punk ugari aurreko lerroetan, pogo basati azken atalean, Julian Hernandezen buruketak (arina eta fina da tipo hau), kantatu nahi zuen **espontaneoa**, kristal apurtuak, izerdia nonahi, aretoa jendez gainezka (urtero bezala), tipo batzuk bozgorailuen aurrean. Berria - Kultura

---

espontaneoki *adlag* era espontaneoan.

Auzo honetan bada nik beste parrokia askotan ikusi ez dudan gauza bat, jendeak elkartasuna berehala agertzen du, **espontaneoki**, eta hori lortzea gauza handia da. Pako Aristi

Caracazo: 1989ko otsailaren 27an auzoetako jendeak, **espontaneoki**, eragin zituen komertzioen sabotaia, txikizio eta lapurretak. Pako Aristi

---

espontsor ik **esponsor**.

---

espora *iz* landareen eta onddoen ugalketa organoa, gehienetan zelulabakarra.

Ibaiertz zokoetako garo urdinen **esporak** igeri joaten dira uretarantz. Anton Garikano

Esporak izaten dituzte produktuok, eta hazi horiek giro egokia aurkitzen badute, bertakotu egiten dira. Berria - Gaiak

Ziurtasun honek denbora horixe irauten du; gehiago, agian, **esporak** baino. Anton Garikano

Albisteen hedapen aluzinatua, gertaeren baitan edo gertaerei buruz ematen, proposatzen edo saltzen den bertsioaren baitan gauzatzen den barne-ernetze kontraesankorreko ahalmen bati buruz ari gara orain, bertsio hori **esporez** bezala biderkatzen da, eta bigarren zein hirugarren iturrien ugaltzea gertatzen da, kopiatu zutenen iturrien ugaltzea. Jon Alonso

2049rako, beren **espora** bidezko ugalketa-sistemaren ondorioz, arcturustarrak hamabost mila inguru ziren Euskal Herri osoan, eta sei mila hirurehun eta berrogeita zortzi, zehazki, Gasteizen. Iban Zaldua

---

esporadikoki *adlag* noizean behin, noizbehinka.

Ez **esporadikoki**, araua luzaroan atxiki nahi duen testu oso batean edo, errazagoa dena, hitz zerrenda batean. Iñaki Arranz

---

esporta *iz* otarrea.

Zuhaitz nagusien adar trinko eta oholak gauza iraunkor eta irmoetarako balio zuten bezala, hurritzak eta kanaberak, beren ale, fruitu eta beste jangai, mila emari biltzeko gauza izango ziren kapazo, saski, otar, **esporta** eta banasta egiteko estimatuak izango ziren. Pello Zabala

---

esportagarri *izond* esporta daitekeena.

Baina funtzio hori betetzeko, lehenengo, sinistu behar dute euskal idazleak **esportagarriak** direla eta labela badutela, eta hor dago koxka, ez dutela sinisten. Ana Urkiza

Ildo horretan, «eredu erabat **esportagarria**» dela iritzi zion Irujok, baina estatuek honen berri ez dutela eman eta ondorioz, Europan ezezaguna dela azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Arzuagaren esanetan, Euskal Herria une honetan errepresio-laborategi **esportagarria** da, eta entzuleak ohartarazi zituen: «Orain euskal mugimendu alternatibo eta disidenteari ari dira erasotzen, baina adi egon, Euskal Herriko egoeratik ateratzen dituzten ondorioak beste herrialdeetan erabilgarriak baitira». Berria - Euskal Herria

---

esportatu, esporta(tu), esportatzen *(orobat **exportatu** g.er.)* **1** du *ad* salgaiak jatorrizko herrialdetik beste batera bidali.

Merkataritzaren xedea salerosgaiak Estatuaren mesedetan **esportatzea** eta inportatzea da. Iñaki Iñurrieta

Duela urte gutxi, pare bat hamarkada, Txina, Vietnam, Indonesia edo Bangladesh bezalako herrialdeak lehengaiak **esportatu** eta eskuz landutako produktuak inportatzen zituzten. Iñaki Heras

AEBek **esportatzen** duten produktu bakoitzeko 1,5 inportatzen dute. Berria - Ekonomia

Inportatutakoa baino 102.000 milioi dolar gehiago **esportatu** zuen. Berria - Ekonomia

Argentinatik produktuak **esportatzeko** bitartekaritza lana egiten ari naiz. Berria - Kirola

Guztira, merkataritza balantzan, inportatu baino %82 gehiago **esportatu** zuten enpresa arabarrek. Berria - Ekonomia

Bilboko portutik barrena autoak legez kanpo **esportatzen** zituen talde bat desegin dute Prezio horretatik behera portugaldarrei ez zaie komeni beren ardoa **esportatzea**. Berria - Euskal Herria

Gerhard Schroeder Alemaniako kantziler ohiak onartu zuen Gazpromek Baltiko Itsasotik Europa Mendebaldera gasa **esportatzeko** egin nahi duen 5.000 milioi dolarreko gasbide baten proiektua zuzentzea. Berria - Harian

Lehengairik gabe, herrialde horiek manufakturak **esportatu** beste biderik ez zuten beren ordainketa-balantza orekatzeko. Koro Navarro

Haren eraginez, alpapa eta ahuntz-larruak **esportatzeari** utzi, eta inportazioetan espezialdu ziren, bertan zen portuges tropari begira: arroza, whiskia, tabakoa. Pablo Sastre

Ptolomeok monopolioa ezarrita zeukan, ordea, eta, horretaz baliaturik, papiroa **esportatzea** debekatu zuen. Jon Muñoz

Zenbat eta handiagoa izan Portugalek Ingalaterrara **esportaturiko** ardoaren prezio-elastikotasuna, orduan eta trukearen baldintzen beheko mugetatik gertuago trukatuko da (0,89 oihal-unitatea) Portugalek Ingalaterrara **esportaturiko** ardo-unitatea. Koro Navarro

Landesetarik **esportatu** dira 100 000 tona egur, zenbaki ederra. Herria

Duela urte batzuk, AEBek debekatu egin zuten kriptografia sistema aurreratuak **esportatzea**, jendea beti agintearen kodetze ahalmenaren azpitik egon zedin. Berria - Gaiak

Merke **esportatu** ahal izateko, azken urteetan yuanaren balioa dolarraren maila berean mantendu du. Berria - Ekonomia

2 (era burutua izenondo gisa)

Elastikotasuna batetik beherakoa bada, inportaturiko bolumena handiagoa izango da, baina murriztu egingo da portugaldar inportazioen balio orokorra, eta Ingalaterra galduan aterako da, bai trukebaldintzei, bai balio **esportatuei** dagokienez. Koro Navarro

3 irud/hed

Teknologia horiek erabat ahalbidetuko baitute iraganean ezinezkoak ziren hainbat zerbitzu etorkizunean erraz inportatzea edo **esportatzea** (itzulpenak, bideo-hitzaldiak, lege aholkularitza, edota zenbait medikuntza zerbitzu, besteak beste). Iñaki Heras

Iaz, EAEko armagintza sektoreak 85 milioi eurotik gorako etekinak lortu zituen; heriotza eta sarraskia **esportatzetik** lortutako irabaziak, alegia. Berria - Euskal Herria

Horren oinarriak **esportatu** daitezke, betiere herrialde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Berria - Mundua

Suediako eredua beste herrialdeetara **esportatzea** zaila dirudi beraz. Berria - Harian

Leku berriak konkistatzeko anbiziorik ez zaigu falta, ezta **esportatzeko** lehengaia ere: artistak. Berria - Kultura

Zengö taldeak, Moldavia eta Transilvaniako botzak, musikak eta dantzak kartsuki **esportatzen** dituenak, nazioarteko kantaldi frango baditu jadanik emanak. Herria

Beste zenbait arlotan Egunkaria-k harturiko hainbat irizpide **esportatzea** lortu bada ere, nago ez dela hori gertatu grafiaren anabasa honekin. Iñigo Aranbarri

Europak ez zituen bere biztanleria-soberakinak bakarrik **esportatzen**; kapitalen irteerek ere goranzko mugimendu ikusgarria izan zuten 1840 eta Lehen Mundu Gerraren artean. Koro Navarro

Europarrek estatubatuarrei inflazioa **esportatzea** aurpegiratzen zieten arren, ondo asko zekiten kapital-sarrera horrek beren ekonomiak biziagotzen zituela. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esportatu ahal (4); **esportatu du** (3); **esportatu nahi** (3); **esportatu zuen** (4); **esportatu zuten** (4); **esportatzea debekatu** (4); **esportatzea debekatu zuen** (3); **esportatzea debekatzen** (3); **esportatzen ditu** (5); **esportatzen du** (6); **esportatzen duten** (5); **esportatzen hasi** (3); **gehiago esportatu** (6)

---

esportatzaile *(orobat **exportatzaile** g.er.) izond/iz* esportatzen duena.

Sektore **esportatzailea** da, eta ekonomiak atzera egiten duenean edo hazten ez denean berehala nozitzen du hori. Berria - Ekonomia

Europako Batasuneko herri **esportatzaileentzat** onuragarria da euroak balioa galtzea. Berria - Ekonomia

Enpresa multinazional **esportatzaileekiko** mendekotasunak nazioarteko zuzeneko inbertsioen kasuan bezain indartsu jarraitu du. Koro Navarro

Washingtonek bere enpresa **esportatzaileei** ematen dizkien zerga-kenkariei erantzunez, atzoz geroztik mugasari handiagoak ordaindu behar dituzte Europako Batasunean Estatu Batuetako hainbat gaik. Berria - Ekonomia

Halako egoera baten ondorio makroekonomikoetako bat truke-tasa errealaren infrabalorazioa da, truke-tasak ekonomiaren batez besteko produktibitatearen mailan geratzera jotzen baitu, eta ez sektore **esportatzaile** bakarraren mailan. Koro Navarro

Venezuela AEBen laugarren petrolio hornitzailea da, eta mundu mailako bosgarren **esportatzailea**. Berria - Ekonomia

Ingalaterra, garai hartan, periferiako herrialdea zen, lehengaien **esportatzaile**, Eskandinavia eta Errusia bezalaxe. Koro Navarro

India, kotoi-ehunen **esportatzaile** izatetik, inportatzaile izatera igaro zen 1830ean, Ingalaterrak, aldi berean, esportazioko laboreen garapena sustatzen zuelarik [...] bere produktuen salmenta finantzatzeko. Koro Navarro

Truke-tasen egonkortasun ezak, ziurtasun falta sortzen baitu **esportatzaileengan**, enpresak (filialak) merkatu hornitzaileetan bertan sortzea eragin dezake. Koro Navarro

2 (hitz elkartutean)

Halako egoera baten ondorio makroekonomikoetako bat truke-tasa errealaren infrabalorazioa da, truke-tasak ekonomiaren batez besteko produktibitatearen mailan geratzera jotzen baitu, eta ez sektore **esportatzaile** bakarraren mailan. Koro Navarro

Nigeria da haur eta emakume **esportatzaile** handiena. Berria - Gaiak

Garapenbideko herrialde bakarra zegoen orduan (Brasil) petrolioaz besteko munduko lehenengo hamar lehengai-**esportatzaileen** artean, hamargarren postuan hain zuzen. Koro Navarro

LPEE Lurralde Petrolio-**Esportatzaileen** Erakundea ia gehienezko ahalmenarekin ekoizten ari da. Berria - Ekonomia

HPEE Herrialde Petrolio **Esportatzaileen** Elkartea. Koro Navarro

Errusia munduko gas natural **esportatzaile** nagusia eta bigarren petrolio gordin **esportatzailea** zela. Berria - Harian

Lurralde Petrolio **Esportatzaileen** Erakundeak arrisku horren aukera jaso du bere apirileko txostenean. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

esportatzailea da (6); **esportatzaileen erakundeak** (23); **esportatzaileen erakundeak lpee** (4); **esportatzaileen erakundearen** (7); **esportatzaileen erakundeko presidenteak** (4); **lurralde petrolio esportatzaileen** (54); **petrolio esportatzaileen** (57); **petrolio esportatzaileen erakundea** (7); **petrolio esportatzaileen erakundeak** (21); **petrolio esportatzaileen erakundean** (3); **petrolio esportatzaileen erakundearen** (6); **petrolio esportatzaileen erakundeko** (13)

---

esportazio *(orobat **exportazio** g.er.)* **1** *iz* salgaiak jatorrizko herrialdetik beste batera bidaltzea.

Merkantilisten estrategia barne-ekoizpena sustatzea zen, inportazioen kontra hura babestuz eta **esportazioak** indartuz. Koro Navarro

Izan ere, dolarra zenbat eta baxuago, **esportazioak** merkeago. Berria - Ekonomia

Hain zuzen ere, debaluazioak **esportazioak** areagotzen ditu, eta ondorioz, bertako prezioak atzerrian lehiakorragoak dira. Iñaki Heras

Oro har, %0,5 gutxitu ziren **esportazioak** iaz: %16,9 hegazkin osagaienak eta %5 ibilgailuenak. Berria - Ekonomia

Esportazioek gora egin dute, nabarmen, eta barne merkatuetako «inbertsio apurren» eragin ezkorra indargabetu dute. Berria - Ekonomia

Ekoizpena eta **esportazioak** hazi arren, irabazi marjinak jaitsi egin dira. Berria - Ekonomia

Mende erdian, 1959az geroztik, munduan egiten diren **esportazioak** 2.000 aldiz handitu dira. Pello Salaburu

Garapena beren baliabide naturalen estimazio hobean oinarrituta bultzatzeko itxaropena zuten nazioak -beren **esportazioak** dibertsifikatu gabe ordea-, guztiz baztertuak geratu dira. Koro Navarro

Prezioen beheraldiak **esportazioko** sarreren gainean duen eragina murrizteko.Tokiko merkataritza eta **esportaziozko** merkataritza gero eta zorrotzago bereiztea. Koro Navarro

Aldi berean, emigrazioa eta kapitalen **esportazioa** europar mundu-ekonomiaren zabalkunde-bide berria gertatu ziren. Koro Navarro

Eustaten datuen arabera, inportazioak %23 handitu dira, baina merkataritza balantza **esportazioen** aldekoa da: 505 milioi euroko superabita. Berria - Ekonomia

Garapen-bideko herrialdeen gai manufakturatuen **esportazioen** gorakada. Koro Navarro

Barne-merkatuaren eta **esportazioen** hazkunde orekatua. Koro Navarro

Esportazio eta inportazioen hazkunde tasak nabarmen jaitsi ziren, 2004koekin alderatuz. Berria - Ekonomia

Esportazioen sustapena Ekialde Urrunean. Koro Navarro

Mendebaldeko Europako gai manufakturatuen eskualdez kanpoko **esportazioak** %19tik %15era jaitsi ziren 1979 eta 1998 artean. Koro Navarro

Euroguneko **esportazioak** %1,7 igo dira ekainean, eta inportazioak, berriz, %4,4. Berria - Ekonomia

Mundu mailako **esportazioen** epe luzeko hazkunde-tasa. Koro Navarro

Iragarritako 53.000koa baino handiagoa izan da azkenean inportazio eta **esportazioen** arteko aldea. Berria - Ekonomia

New Yorkeko inportazio eta **esportaziorako** enpresarik zaharrenetako eta prestigiotsuenetako bat. Lopez de Arana

Iraupeneko nekazaritzaren ordez dirua egiteko nekazaritza ezarri zen, eta **esportaziorako** ekoizpen industriala, inportaturiko oinarrizko jakien eta lehengaien trukean. Iñaki

Mendiguren

Esportaziorako laguntzak eteteko prest da Brusela. Berria - Ekonomia

Esportazioa, itzulpena, horra hor unibertsaltasunaren benetako ugatzak. Berria - Kultura

Urrian 20.000 dolarreko balioa lortu zuten Txinatik AEBetarako **esportazioek**. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Interesen ordainketa bermatzeko, artilearen, mearen eta bestelako lehengaien **esportazio** masiboari ekin behar izan zioten, herrialdearen kanpo-mendekotasuna areagotzeraino. Iban Zaldua

Ekonomiari dagokionez, Latino Amerikako zordun handien barne-merkatuen murriztea kaltegarria gertatzen zitzaien estatubatuar **esportazioei**. Koro Navarro

1913tik 1997ra, nekazaritzak, meatzaritzak eta energia-gaiek munduko **esportazioetan** duten partea bi heren izatetik, laurden bat baino gutxiago izatera iritsi da. Koro Navarro

Periferiak, zentroko **esportazioentzat** bazterreko merkatua izanik, zentroa lehengaiez hornitu baino ez du egiten. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Formakuntzaren bigarren partea gure enpresan berean iragan da: honat jin zaigu Merkatal Ganbarako emazte bat, **esportazio** zerbitzukoa. Herria

Plataformetako eta **esportazio** biltegietako jendeak lanean segituko du. Berria - Ekonomia

Era horretan, hogeita hamar urtetan, herrialde hauek produktu bakunetan (jantziak) oinarritzen ziren **esportazio**-egiturak izatetik, industria astunak menderatutako egiturak izatera (ontziolak, burdingintza, petrokimika) igaro dira lehenbizi, eta teknologia handiagoa behar duten industriak izatera gero. Koro Navarro

Kanpoko finantzaketaren premiak -tokiko aurrezkia urriegia izatetik edo **esportazio** ahalmen urritik sortuak-, hartzekodunekiko mendekotasun objektiboan uzten ditu herrialdeok. Koro Navarro

Herrialde batek, beraz, gehiago irabaziko du trukean zenbat eta sendoagoa izan inportazio-eskariaren prezio-elastikotasuna, eta zenbat eta ahulagoa izan **esportazio**-eskaintzaren prezio-elastikotasuna. Koro Navarro

Markoaren indarrak, 1999 arte, ez dio askorik eragin **esportazio**-konkurrentziari -prezioez bestelako argudioetan oinarritzen baitzen-. Koro Navarro

Alabaina, ez zizkioten afrikar edo asiar koloniek eman **esportazio**-merkatu garrantzitsuenak europar industriari. Koro Navarro

Sektorezkoak nahiz geografikoak izan, trukeek egituren gainean dituzten ondorioek, izan ere, eginkizun garrantzitsua betetzen dute **esportazio** kopuruen hazkundean. Koro Navarro

Labore inportazio eta **esportazio** kontuak, lupulu salerosleentzako baimen bereziak, erientzat pasaportea luzatzeko eskaerak, atzerriko gobernuentzat salerosleei emandako gomendiozko kartak. Matías Múgica

Tortura Guantanamoko **esportazio** artikulu ankerra izan da. Berria - Mundua

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hegazti edo haragi **esportazioak** soilik behar denean debekatu. Berria - Gaiak

MMEk nekazaritza **esportazioei** diru laguntzak kentzeko eskatu du. Berria - Ekonomia

1998an Ekialde Urrunekoa zen munduko industria-**esportazioen** %27, baina inportazioen %18 bakarrik. Koro Navarro

UNCTADen arabera, 1970etik aurrera etengabe murriztu da munduko lehengai-**esportazioetan** -petrolioarenean izan ezik-, garapen-bideko herrialdeek duten ehunekoa. Koro Navarro

Errusiak Ukrainarako gas **esportazioak** eten zituen. Berria - Harian

Herenegun eta atzo Basorako petrolio eraikuntzen aurka burututako sabotaien ondorioz, Irak hegoaldeko petrolio **esportazioak** etenda geratu dira. Berria - Mundua

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Inportazio-**esportazio** enpresa bateko bulegari zaildu eta trebatua. Joxemari Iturralde

NBEk 2000. urtean ondorioztatu zuenez, diamante **esportazio** kopurua ez zetorren bat Liberiak zituen bitarteko murritzekin. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egindako esportazioak (5); **esportazio eta** (5); **esportazioak eta** (3); **esportazioak hazi** (4); **esportazioak izan** (4); **esportazioak izan dira** (3); **esportazioak nabarmen** (3); **esportazioak sustatzeko** (3); **esportazioei dagokie** (3); **esportazioei dagokie** (3); **esportazioei esker** (5); **esportazioei esker** (5); **esportaziorako laguntzak** (11); **eta esportazio** (4); **eta esportazioa** (3); **eta esportazioak** (10); **eta esportaziorako** (3); **europako esportazioak** (3); **gipuzkoako esportazioak** (3); **nekazaritza esportazioei** (3); **nekazaritza esportazioei** (3); **petrolio esportazioak** (5); **produktuen esportaziorako** (4); **ziren esportazioak** (4)

---

esportzagarri *izond* adore ematen duena.

Ez dakit txantxan ari ote zitzaidan, neure bihotzaren altxagarri eta **esportzagarri**, baina kontua da ezen haren txantxak ez zidala neholako onik egin. Joan Mari Irigoien

---

esportzatu, esportza(tu), esportzatzen du *ad* adore eman.

-Eta laugarrena eta borzgarrena! -animatu eta **esportzatu** zen bertze bi soldaduetarik bat. Joan Mari Irigoien

Eta, dei hark eta arestian bururatu arrazoin haiek guztiek **esportzatzen** eta aitzinatzen nindutela, baita bihotz emaiten ere, ez nuen zalantzarik izan. Joan Mari Irigoien

---

esportzu *iz* adorea; ahalegina.

Baina Antoniok, aisetasun eta erosotasun orotarik harat, ez zuen etsi nahi eta, indarraren eskastean ere **esportzuak** eta bizigogoak uzten ez zutela, erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Eta zein da animaleko **esportzu** horren lorpena? Patziku Perurena

---

esporulazio *iz* esporak eratzea eta askatzea.

Mikroorganismoetan, baziren fenomeno batzuk zelula-desberdintzea oroitarazten zutenak: baziloetan, **esporulazioa**; legamian, batik bat, oso hurbil baitago organismo gorenen zeluletatik, **esporulazio**- eta sexualitate-fenomenoak. Legamiarenean salbu, egokia baitzen hura, oso, halako ikerketa motarako, baina, aitzakia batekin: **esporulazio**- eta sexualitate-fenomeno batzuk alde batera utzita, ez zuen inolako zerikusirik enbrioiaren garapenarekin eta zelula-desberdintzearekin. Juan Garzia

---

espos 1 *iz ipar* senarra; emaztea.

Halarik ere, berori dugu etxeko jauna, ene **espos** Martin, eta berorrek du hondar hitza. Joan Mari Irigoien

Engrazia, Birgiña gloriosa, / martir Santa Jaunarena, / gutaz ein zazu otoitz ona, / Jesukristoren **esposa**. Pello Zabala

Bere **espos** sainduari barkamendu eskatzen derauko eta geroztik ez du harentzat omodiorik baizen. Xipri Arbelbide

Hitz horietan, aitorensemea bere jauregirat itzuli zen eta nigarrez abiatu bere **espos** maitearen aintzinean. Xipri Arbelbide

Dakizun bezala, **espos** berriak Bolgararen leinukoa izan behar du, hala baitzen erregina zenaren gutizia. Aurelia Arkotxa

Entzun ditu Eskual Herrian hanbat eliza-gizon kartsuen, hanbat komentuetako Jesusen **espos** garbien, eta muduan berean sainduki bizi diren hanbat Kristau onen otoitz eta errekerimendu minak Bere lanari esker, bere **esposarekin** bost haur altxatu dituzte ohorezki, bai eta ere egoiteko etxea eraiki.. Xipri Arbelbide

2 *pl* senar-emazteak.

Kasik inposatu zizkiguten **esposek** eguna, tenorea, testuak, kantuak. Piarres Aintziart

Halaz, apezaren aitzinean bi **esposek** baiezkoa trukatu zutenean, neskatxaren zintzurrean korrok bat trabukatu zen: ez zion begiradarik bota senarrari. Itxaro Borda

Baina denborarekin mercedesa berbideratu zen, elizarantz, **esposena** zetorrela ondotik eta segidan ezkaratzeko atarian, ehun bat burlari muturenak, tipula-kordela melenga antzera. Itxaro Borda

Iruñeko apezpikua ez baitzegoen lo eta beretzat baitzeukan Ondarrola gozamenez, paperez ez balin bazen ere, ezkontza horiek ez zirela bali jakinarazi zuen, lau **espos**-berriak eskumikatzen zituela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azkenean, bi urteren buruan, lotsatu ziren **espos** gazteak eta I864ko apirilaren 12an berriz ezkondu ziren, baina aldi honetan Luzaiden. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Anitz zorion **espos** berrieri eta goresmen beroenak horien familiako guzieri. Herria

Michel Jaureguy apezak, altxatu ditu, Elizaren izenean, **esposek** elgarri eman dituzten hitzak eta eman du meza saindua Pochelu eta Erdozaincy apezek inguratzen zutela. Herria

· Jaun-andere **esposak** egiazki arrangura ziren mezaren zabalkundearekiko. Itxaro Borda

Dantzan ari zen herria, dantzan ohikoan elkar ausikika bazebiltzan auzoak, jaun-andere **esposak**, azkaziak, dantzan sartu zen bekatu zen arren, bereterrez lagundutako apeza, dantzan halaber azkenik herri horretan zegoen giroa dastatzeko plazan ikusgarriari so kurios gelditzen zirenak oro. Itxaro Borda

3 *pl* ezkontza.

Maite dut artzea dantzan, bai... **espos** batzuetan edo holako gauzak. Menane Oxandabaratz

Ganden larunbatean bi **espos** andana ospatu dire herrian, Manu Endarra eta Sabine Tapia herritarrak, Attuketeneko Rafaelek aldiz andretzat hartu du Nima izeneko Afrikano neskatxa gazte eder bat. Herria

Abel eta Emmaren **espos**-egunekoa. Daniel Landart

Orai, Indianoek berek sustatzen dituzte obra frango, batzuek bi irrisa zaku ekarriz, bertze batzuek beren **esposak** ospatzeko egunean, jatekoa eskainiz beharretan diren haurreri. Herria

4 ***jaun/andere espos(a)***

Jakobe maisuak kondenatzen zuen ikuspegi hori, alde batetik bortxatzeko eskubiderik gabeko boterea hutsala baita, eta bestetik esku hartzeko eta bortxatzeko ahalmenik ez balu ahal guti bailuke, haren **Jaun Espos** handien eta hoberenak, Jesu Kristok berak ezarri zion helburura heltzeko. Piarres Xarriton

Santa Mariade la Almuneda katedralean egin da ezkontza haundienean, **jaun esposak** 36 urte eta **andere esposak** 31. Herria

5 ***espos-esposa*** *pl* senar-emazteak

Espos esposak, bertsu batzutan, beharko ditut aipatu. Herria

6 ***espos-gai*** ik **esposgai**.

7 ***espos lagun*** *(orobat* ***esposlagun*** *g.er.)* ezkonlaguna.

Familia ederra hazi du bere **espos lagun** Elixarekin. Herria

Ez da harritzeko frantsesez mintzo baziren etxen, nahiz española ere ongi bazakiten; funtsean beren **espos lagunak** garaztarrak ziren edo baigorriarrak, etxeko alaba printzipalak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bizpahiru urte berantago autoz egin zuen bidaia bera, oraingoan haatik bere **espos lagunarekin**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Espos lagunari, haur, haur ttipier, ait'ama, haurride, heriotze hortaz hunkiak diren familia guzieri gure dolumin bizienak, eta otoiz bat bi heriotze horiendako. Herria

Parte hartzen dugu Xalbat, **espos lagunaren** doluminean. Herria

Joanden larunbatean Peio Saldubehere Aldudarrak hartu du **espos lagunetako** Itxaro Goicoechea Irulegitarra. Herria

Berriki ezkondu da herrian Laurence Nouhide Akokako Aña Mari-ren alaba **espos laguntzat** hartuz Xavier Thévenot kostalde hortakoa. Herria

Segur gira Jainko Aita Zeruetakoak Mailux bere **espos lagun** zenaren aldean ezarri duela Lucien. Herria

10 ***espos meza*** ezkontza meza.

Jauntxoak norbait igorri zuen haren bila, **espos** mezaren emateko. Elena Touyarou

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

agiantza hoberenak espos (4); **agiantzak espos** (10); **agiantzak espos berrieri** (10); **aldetik konplimenduak espos** (3); **andere esposa** (5); **andere esposak** (6); **andere esposaren** (8); **bat espos** (4); **baten agiantzak espos** (7); **bere espos** (33); **bere espos lagun** (3); **bere espos laguna** (10); **bere espos lagunarekin** (14); **bere esposarekin** (5); **beren espos** (6); **beren espos lagunekin** (4); **beroenak espos** (11); **beroenak espos berrieri** (9); **beroenak haren espos** (3); **bi espos** (5); **bi espos andana** (3); **bizienak espos** (3); **diozkategu espos** (3); **dituen espos** (6); **dituen espos lagun** (4); **dolumin bizienak espos** (3); **du espos** (16); **du espos laguntzat** (13); **duen espos** (3); **elizan espos** (3); **ene espos** (4); **ene espos martin** (4); **espos andana** (4); **espos berriak** (9); **espos berrieri** (84); **espos berrieri eta** (47); **espos gazte** (11); **espos gazte horieri** (4); **espos gazteeri** (16); **espos gazteeri eta** (8); **espos lagun** (25); **espos lagun eta** (5); **espos laguna** (17); **espos lagunak** (9); **espos lagunarekin** (15); **espos lagunari** (15); **espos lagunari eta** (10); **espos lagunekin** (4); **espos lagunetako** (3); **espos laguntzat** (32); **espos laguntzat hartu** (4); **espos laguntzat hartuz** (13); **espos martin** (4); **espos meza** (11); **espos mezaren** (3); **espos ziren** (3); **esposaren osaba** (3); **esposek elgarri eman** (3); **eta goresmenak espos** (11); **goresmen beroenak espos** (9); **goresmenak espos** (32); **goresmenak espos berrieri** (29); **gure goresmenak espos** (6); **haren espos** (13); **haren espos lagun** (6); **haren espos lagunari** (4); **hartu du espos** (15); **hoberenak espos** (5); **hoberenak espos berrieri** (4); **jaun andere esposak** (4); **jaun esposak** (3); **konplimenduak espos** (3); **konplimenduak espos berrieri** (3); **utzi dituen espos** (4); **zorionak espos** (28); **zorionak espos berrieri** (20); **zorionak espos gazteeri** (6)

---

esposa[1] **1** *iz* emaztea.

Bere lehen **esposa** izan zen Aibarko andere Santxaren rola egingo duena Graxi Bedaxagar izango da. Berria - Kultura

Badakigu ama zuela Grace Kelly anderea, amerikarra eta zinemetako jokolari haundi arras ezagutua, Rainieren **esposa**. Herria

Jadanik hango laborari lurgabe andana batek oldarrean hartuak eta bahituak zituen presidentaren **esposaren** 1.800 hektara lur Collanan, kapitaletik 80 kilometretan. Herria

Badoa Juppe jauna Normandiara, bere **esposaren** familiaren etxera, bi gogoeten egiteko, ea uzten duen politika jadanik hitzeman zuen bezala edo segitzen zuen. Herria

Lehen ministroa Alpetako aire fresko eta sanoan eta Jakes Haundia bere **esposarekin** Kanadako giro goxoan berant konturatu ziren zer gertatzen zen. Herria

Ba omen zen Amelia izeneko herri batean, aspaldi, Buccio Malpanno zeritzan gizon xaloa eta lañoa, **esposatzat** zuena Catalina zeritzan hogeita bortz urteko emazteki bat. Joan Mari Irigoien

Bihotzez doluminak Maxime haren **esposari** eta familiako guzieri. Herria

2 ***jaun/andere esposa***

Bat almirantea zen, bere **andere esposarekin**. Eneko Bidegain

Santa Mariade la Almuneda katedralean egin da ezkontza haundienean, **jaun esposak** 36 urte eta **andere esposak** 31. Herria

3 ***esposa hartu***

Egin zenidan promes -dio gaixoak- **esposa hartzeko**. Juan Garzia

Bolgara erregina, Argonen andre zena, hil da eta Argonek bakarrik bere andrearen leinuko **espos** baten **hartzeko** dretxoa du. Aurelia Arkotxa

---

esposa[2] *iz pl* eskuburdinak.

Bi eskuak falta zitzaizkion, fusilatu arte zeramatzan **esposengatik** zela esan zieten, azkar kentzearren, azalpen ergela inondik ere. Mikel Hernandez Abaitua

esposaketa *iz* esposizioa, erakusketa.

Iazko udaberrian Kanbon egin ziren gazte topaketak iragartzen zituen afixean **esposaketa** baten berri ematen zen. Iñigo Aranbarri

Delegaritza eta oposaketaren logika berberari esker atera nuen erakusketa edo esposizio bat zela Haika gazte erakundeak Kanboko Topagunearen ekintzen baitan iragartzen zuen **esposaketa** hura. Iñigo Aranbarri

---

esposatu[1], esposa(tu), esposatzen da/du *ad* ezkondu.

Hogeita bi urte ditu horrek, eta bi urte inguru baditu **esposatu** zela. Jon Muñoz

Zinez eginen diodala neure alabari zerbitzu, liburu hau **esposatuko** den egunean emanik. Jon Muñoz

Moja ez, ideia modernoegiak zituen horretarako: baina betiko debekatuko zion ezkontza bere buruari, modu sotil eta gupidagabe batean, hots, **esposatuz**. Juan Garzia

Nolaz den jina Balantin amorosen patroina? Claudius bigarrena Erromako enperadoreak debekatu zuen bere soldadoak **esposa** ziten, oro prest izan ziten gerlarako edozoin tenorez. Herria

Bat neskame sartu zen Lublin-en; beste batek Amerikara alde egin zuen; ederrena, Malkeleh, elgorriak jota hil zen; eta laugarrenak agure bat **esposatu** zuen. Koro Navarro

Eta neska euskaldun bat **esposatu** zuelarik, euskara perfekto daki.Gizon hori izanen da agian **esposatuko** nauena. Koldo Izagirre

Haren iritziz, Avigdorrek ezin izan zuen Hadass ahantzi, eta, hala, bere adiskideak **esposa** zezan banatu zen Anshel. Koro Navarro

Urbiako Udaleko idazkari izan zen Don Fermin urte askoan, erretiratu zen arte, haren alabak nekazari aberats bat **esposatu** zuenean. Koro Navarro

Esposatzen bahaiz, izurri hau emango dinat ezkonsari: xahu izanagatik izotzaren pare, aratz elurra bezain, ez haiz libratuko kalumniatik. Juan Garzia

Uste nuen, komentutik jalgiarazi ninduelarik, **esposatzeko** izanen zela. Jon Muñoz

Zeure esku baitzenuen Enperadore ospetsuarekin eskubide osoz **esposatzea**, zeure eta haren dignitateari zegokion aintza dirdaitsuz. Askoren artean

Ez baitzen eliza deretxoan aditu haietarik, baimenik gabe **esposatu** zen bere kusiarekin. Michel Oronoz

1848an **esposatzera** zihoazen biak, noiz eta ere Madrilgo errege palazioak jakinarazi baitzien ezkontza hori ez zela nehondik ere onartzen ahal. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oraino ez didate ordea deus ere erran; eta baldin ikusiko ez banitu prestaerak egiten, eta hainbat neskame jinen ez balitzaizkit oro neuretzat, usteko nuen amak ez duela ni **esposatzeko** asmorik, eta Joséphine on horren bertze zaharmin bat dela. Jon Muñoz

Cécile txikia **esposatzeko** irtena zen komentura da itzultzen. Markos Zapiain

Andereño batek komentuan gelditu behar lukeela **esposatu** arte. Jon Muñoz

Ondoko udaberrian, apirilaren 28an zehazki, **esposatu** egin ziren Schoemborg Kardinalaren kaperan, Prahan, Don Carlos eta Berthe ezkontideak. Txillardegi

Zaharrena (urtebetez zaharrena, kasu!) Itziar, 1866ko udazkenean **esposatu** zela Mont-de-Marsanera, Donzacq izeneko batekin. Txillardegi

Bazuen bestalde anaia bat biziki trebea, **esposatu** zena Artze Ibar Hiriberriko Porkaxoinera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

esposatu[2] du *ad* esposak ezarri.

Lurrera bota ninduten eta bizkarrean eskuak nituela, **esposatu** ninduten. Berria - Euskal Herria

Bere bi eskuak **esposaturik** sentitu zituenean bakarrik itzuli omen zen bere tentura edo adimenera. Joxean Agirre

---

esposberri *izond/iz* esposatu berria.

Nire andre **esposberriari**, ordea, senarraren iritzia eta iazko haizea berdin zitzaizkion. Aingeru Epaltza

Bukatutakoan, orrialde erdia abantzu neukan oraino, neska **esposberri** baten eztei-jantzia bezain garbi. Aingeru Epaltza

Zenbait urte geroago, Ximurraren ezteiak gure artean eztabaida garratza piztu bazuen -zer eta ezkondu, nola eta elizaz-, **esposberrien** helbide izatekoak ere eman zigun solaspiderik: nora eta izebarenera. Aingeru Epaltza

---

esposgai *(orobat **espos gai**) iz* ezkongaia.

Maddalen eta ni ez ginen segur delako **esposgaien** heinerat helduak. Janbattitt Dirassar

Luzaz izan da ere abenduaren 6eko San Nikolas feria, "etsituena": egun horretan donadoak eta mutxurdinak bazihoazen Donibanera, elgar ikusteko eta geroko **esposgai** baten atzemaiteko menturan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Honek astearte guziz idazten zion **esposgaiari**, besteen trufa maitekorrek ideiak mozten zietela noiz nahi. Piarres Aintziart

Esposatuz geroztik, katixima egile karga ereman du eta bere andrearekin **espos gaiak** kudeatu dituzte, diosesako bilkuretan, ezkontzako sakramendua ikertuz eta sakonduz. Herria

Hango girixtino eta jende guziak badakite norekin mintzatu katiximarentzat, edo **espos gaiak** laguntzeko, edo ehorzketak antolatzeko. Herria

Bizkondea zalduna zen eta beste zaldun zenbaitekin Bilbora joan zen 1439an, Agnès de Clèves, Viana-ko printzearen **espos-gaiaren** errezebitzera, geroztik haren xanbelan izan baitzen. Michel Oronoz

---

esposimetro *iz* fotografiatu behar den gauza argiztatzen duen argiaren intentsitatearen arabera esposizio denbora adierazten duen tresna.

Neurgailu bati elkarturiko zelula fotoelektriko txiki bat da **esposimetroa**, objektiboaren irekiera jakin baterako eta filmaren lastertasun jakin baterako zenbateko esposizioa behar den adierazten duena. Irene Aldasoro

Garai batean, tamaina handi samarreko gauza zen argazkilariaren **esposimetroa**, eta eskuan eramaten zen. Irene Aldasoro

Miniaturizazioteknika aurreratu zenean, kameraren barruan integratu ahal izan zen **esposimetroa**; objektiboaren gaineko aldean, gehienetan. Emaitza fidagarriagoak nahi izanez gero, **esposimetrora** jo beharko da. Irene Aldasoro

Kristalinotik zehar igarotako argiaren seinaleak erabiltzen ditu begiaren **esposimetroak**, garuneko ikusmen-konputagailuak eta erretinak kontrolaturik, baina ispilu eta prisma beharrik gabe. Irene Aldasoro

---

esposizio *(orobat **esposizione** g.er.)* **1** *iz* erakusketa.

Hurrengoa Imanol, pintorea bihurtuko zena, Artelekun eta egin ditu **esposizioak**. Joseba Sarrionandia

Delegaritza eta oposaketaren logika berberari esker atera nuen erakusketa edo **esposizio** bat zela Haika gazte erakundeak Kanboko Topagunearen ekintzen baitan iragartzen zuen esposaketa hura. Iñigo Aranbarri

Eüskal kantoreari bürüzko **esposizione** sonüdüna da hori. Herria

2 esposaketa.

Izan ere, sentimenean, h[au] d[a], espazioan eta denboran emandako agerpenen **esposizioan** lor dezakegun edozein baldintza era berean baldintzatua da. Ibon Uribarri

"Definizioa" adierazpena baino gusturago erabiliko nuke **"esposizioa"**, beti ere zuhurragoa dena, eta honekin kritikoak definizioa onartzen du maila batean, nahiz eta xehetasunari dagokionez oraindik zalantzak izan. Ibon Uribarri

Neurgailu bati elkarturiko zelula fotoelektriko txiki bat da esposimetroa, objektiboaren irekiera jakin baterako eta filmaren lastertasun jakin baterako zenbateko **esposizioa** behar den adierazten duena. Irene Aldasoro

Izan ere, hala, irekiera txikiak eta **esposizio** luzeak adina argi utziko dute igarotzen irekiera handiak eta **esposizio** laburrak. Irene Aldasoro

Galdetu dezakegu ea argazkiak berak ere ez ote duen berdin funtzionatzen, **esposizio**-denbora **esposizio** laburrena baino gehiagokoa denean. Josu Zabaleta

Xehetasun arkitektonikoak hobeto ateratzen dira irekiera txikia eta **esposizio** luze samarra erabilita. Irene Aldasoro

Areago, Vianaren lanak ohartarazi baitzuen **esposizio** erradioaktiboa gerta zitekeela Trilloko zentrala abian jartzean. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan)

Linternaren laguntzaz azaldu zizkion diafragmaren zabalerari eta **esposizio** denborari buruzko zertzeladak. Josu Landa

---

esposizione ik **esposizio**.

---

esposlagun ik **espos 7**.

---

esprabi ik **esprobatu**.

---

esprai *(orobat **spray** g.er.) iz* gas batekin nahasiriko isurkari bat presiopean daukan ontzia, eragiten zaionean isurkaria laino gisa kanporatzen duena; kanporatzen den gasa bera.

Karlos eta biok bizkar-zorroan **espraiak** sartzen gelditu gara eta atzetik jo dugu, eurekiko tartea utzita. Urtzi Urrutikoeetxea

Frantxik beste **esprai** bat hartu eta berak bai, itxurosoago marrazten du. Urtzi Urrutikoeetxea

Ezin hasiko gara **espraiak** xahutzen sekulako graffitia egiteko, ezta? Urtzi Urrutikoeetxea

Batek erasoaren arrazoiak aurpegira botatzen zizkion bitartean, beste batzuek paretak **espraiz** margotu ziztuzten. Iban Zaldua

Eskuargi bat eta **esprai**-pote bat erosi nituen mimoaren plazatik Udal Museorainoko bidean. Anjel Lertxundi

Lau bat **esprai** pote izango dira, eta bizkar-zorroan elkarren aurka jotzean ateratako soinuak bete-betean igo dit adrenalina. Urtzi Urrutikoeetxea

---

espraiatu, espraia(tu), espraiatzen *(orobat **espraitu**)* du *ad* espraiz margotu.

Huraxe zen amarruetako bat: txakur ahulenaren azala gai loarazleaz **espraiatu**, beste zakurrak kosk egiten zion orduko lelotu eta bertan zerraldo eror zedin, nerbioak erabat anestesiatuta. Harkaitz Cano

Uniformearen barruko aldetik spray bat atera eta presidentearen hankartea **espraiatu** du. Harkaitz Cano

Ez da atzo gauean **espraitua**, Valery Giscard D'Estaing Frantziako lehendakari ohia da-eta salaketaren sujeta. Iñigo Aranbarri

---

espres *(orobat **espresu**)* **1** *izond* berariazkoa.

Gehitu zuen zendutako ospetsuaren borondate **espresa** zela medio testamentuko klausulan agertzen zenez, haren ondasun guztien oinordeko unibertsal izendatzen zuela, errukizko legatu zenbait betetzeko konpromisoa salbu. Bego Montorio

Kultura Sailak emandako dirulaguntzari esker ELHUYAR Kultur Elkarteak eraturiko datu-basea ezingo da hitzartutako hiztegi-proiektua xede ez duen beste edozeinetarako erabili Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren baimen **espresurik** gabe delako oinarrizko baldintzari Pello Salaburu

2 (adizlagun gisa) nahita, berariaz. ik **espreski**.

Handik egun batzuetarat han dira prest bertako eta metropoleko kazeta eta beste komunikabideetako ordezkariak, telebistak barne; orobat **espres** etorritako literatur kritikari eta gainerakoak. Jose Angel Irigaray

Baina menskeria bat erran dut, **espres**, jostatzeko! Piarres Aintziart

Dakidana, haatik, Santiagorako bidean galtzeko, **espres** egin behar dela, hain da Caminoa ongi markatua. Piarres Aintziart

Funtsean beldur haiz eta beranta biltzen **espres** ari haiz! Piarres Aintziart

3 *(orobat **espresso**)* kafeaz mintzatuz presioan egina.

Bai ur gazia itsasoan, bai kafe **espresoa** nire kikaran. Jon Muñoz

Italiana: kaferik goxoena egiten duen gailua, taberna guztietako **espres** guztiak batera baino hobea. Unai Iturriaga

Espressoa da edangarria zaidan bakarra. Harkaitz Cano

Eta kafetegi honetara sarturik, beste **espresso** bat eskatu, eta nire eguneroko ezinbesteko hau idazteari ekin diot, Orain **espresso** trinko bat behar nuke, baina hemengo kafearekin etsi beharko dut. Patxi Zubizarreta

4 *iz* tren espresa.

Iturri ofizialen arabera, 700 pertsona inguru zihoazen **espresean**. Berria - Mundua

Trenetako bat **espresa** zen, eta bestea, berriz, aldirikoa. Berria - Mundua

"Noiz joan da kapitaina?" "Goizeko **espresean**". Xabier Olarra

Paris-Hendaia **espresa** ziri-zara abiatu zen burdinbidean barrena, Donibaneko tren geltokia isiltasunean abandonaturik. Javi Cillero

5 ***tren espres*** *(orobat **espreso**, **tren espreso** eta **tren expreso** g.er.)* geltoki nagusietan soilik gelditzen den tren lasterra.

Oinaze bizi hark senetik aterea, aurrera eta aurrera oldartzen zen, verstak eta verstak eginez **tren espres** baten abiadan. Karlos Zabala

Zakurra lotuta egoten zen; gero, ez dago **tren espres** baten atzetik hainbeste denboran korrika egingo duen zakurrik. Koro Navarro

Hogwartseko **tren espresa** King's Cross-eko geltokitik irtengo da, bederatzi eta hiru laurdeneko nasatik, hamaiketan puntuan. Iñaki Mendiguren

Viena-Budapest **tren espresaren** jangelan egin berri zuen bidaiaren azken emaitzatxoak. Anton Garikano

Gero **tren espresoa** martxan jarri zen, poliki-poliki, eta abiadan zihoan eraikuntza atzean, pasonibelaren atzean, Pordenoneko bihurgune aldean berriro azaldu zenerako. Josu Zabaleta

Biondok **tren espresoa** bezala ziztuan nenbilela ikusten ninduenean urrundik oihu egiten zidan: eman, Garibaldi, eroen saria irabaziko duk eta. Pello Lizarralde

Bestela, Hogwartseko **tren espresean** ikusiko zaitut irailaren batean! Iñaki Mendiguren

Pariserako **tren expresoan** baneukake oraindik beraren bila bagoi guztiak miatzen ibiltzeko aukerarik. Joxe Austin Arrieta

Arratsalde partea zen, Pariseko **espresoa** heltzen zen unea gutxi-gorabehera. Iban Zaldua

Ikuspegitik at dagoen itsasoak ere zipriztinak jaurtitzen harresietara, eta noizbehinka trumoiak zoruan durundi, ondoren **espreso**-makina baten ziztua luzatuz Lisboako

espresoa heldu berria zen. Joxe Austin Arrieta

· Geroago, metro **espresoan** eserita, Ruthek artean sentitzen zuen haren esku leuna bere eskularrua ferekatzen. Lopez de Arana

6 *hed*

Gauerdian, lau tximiniadun transatlantiko **espresoak** euren ontziraleku argitsuetatik itsasoratu eta ilunpean pulunpatu ziren. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espres egin (3); **hogwartseko tren espresa** (10); **tren espresa** (11)

---

espresabide **1** *iz* espresatzeko bidea. ik **adierazpide**.

Nik neuk askotan kanpora joan behar izan dut ikastera, baina ez da ahaztu behar gure herrian ere baditugula **espresabideak**, adierazpen dramatikoak, eta hor sekulako iturri aberatsa dagoela. Berria - Kultura

Jantziak alda daitezke, baina gorpuzkera bera azalaraziko da **espresabide** bakoitzean. Ana Urkiza

Bizkitartean bortizkeria oro **espresabidearen** mailan gelditzen da, protestaren hiztegian. Piarres Xarriton

Horrela esan zuten sinesgarri zaizkigun hainbat latindarrek gai hauek aztertu zituztenean; ez zuten euren hizkeran **espresabide** egokiagorik aurkitu, hitzik gabe ulertzen zutena hitzez adierazterakoan. Imanol Unzurrunzaga

« **Espresabide** artistikoaren kolektiboa» izenaren pean biltzen dira frango artista gazte eta/edo gutxi ezagutuak, bereziki erakusketak eskaintzeko. Herria

Angeluk **espresabide** garaikideen zentroarentzat milioi erdi bat euro baliatuko ditu. Herria

Jakinaren gainean dagoen irakurleak, aldiz, euskal literatura ikasi duenez, Errepublika garaiko "Euskaltzaleak" mugimenduaren berri badakienez eta garaiko olerkarien **espresabideak** ezagunak dituenez, irri egingo du irakurketa inmediato horren aurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Idazleei, kritikariei, irakurleei **espresabide** agorak eskaini behar zaizkie. Ana Urkiza

· Eskaini dute dantza garaikidea, gorputz **espresabidea**, flamencoa eta berdin Hip-hopa. Herria

Beste dantza **espresabideen** heinean jartzen da. Berria - Kultura

---

espresaera *iz* espresatzeko era.

Eta gero, jendeak errepika gatzik gabea espero zuelarik, isilaldi luzetxoagoa eginez eta gorputz-**espresaeraz** ongi lagunduz... Andoni Egaña

---

espresagune *iz* espresatzeko gunea.

Trukagune eta **espresagune** bat sortu. Berria - Kultura

---

espresatu, espresa(tu), espresatzen **1** du *ad* adierazi.

Erakunde publikoak balio batzuen espresioa dira, haien aurkako borrokak ere balio batzuk **espresatzen** ditu. Joxe Azurmendi

Euskal arrazak (herriak) kulturarik ekoiztu ez badu ere berak, euskarak (hizkuntzak) gaitasuna baduela kultura **espresatzeko**, gutxienez besteri hartutakoa. Joxe Azurmendi

Gauza bat da mina ezagutarazten duen gorputz fenomenoa, eta beste bat, erabat bestelakoa, emozioa **espresatzen** duen fenomeno artistikoa. Askoren artean

Alegia, zalantza gabe, ideal zoragarri bat **espresatzen** du; ez du **espresatzen** errealitatea. Joxe Azurmendi

Pio Barojaren Euskal Herriaren ikuskera **espresatzen** da hor: pixka bat, nolakoa ikusten zuen; zerbait gehiago, nolakoa izan zedila, berak opa nahi liokeen, nik uste. Joxe Azurmendi

Kritiko horiek historia, eta bilakaera soziala, klabe biografikoetan ikusten dute; espezifikoago, klabe moralistan; eta hau, askotan, termino psikoanalitikoetan **espresatzen** da. Joxe Azurmendi

Argentinarrek, txiletarrek, etab., ez dutela ahalegindu behar bakoitzak hizkuntza bat ahalik eta nazionalena garatzen, ezpada, nazio horiek zinez izpiritu diferenteak badituzte ere, bakoitzak bere nortasun propioarekin, hala ere denek oso egoki **espresa** lezaketela bakoitzak bere izpiritu berekia hizkuntza bakar berdinean. Joxe Azurmendi

Giza Gorputzaren esentzia **espresatzen** duen kontzeptua edo ideia Jainkoaren baitan aurkitzen da, nahitaez. Piarres Xarriton

Niri prozesuaren tarte hori interesatzen zait, hau da, norbaitek ezinegona sentitu eta **espresatu** ezinik egotetik, formulatzea asmatzen dueneko tartea. Ana Urkiza

Baina ez zegoen atzera egin, aletutako hitzak banan-banan jaso, eta pentsamendu **espresatu** gabeen ganbaran gordetzerik. Anjel Lertxundi

Poeta gazteari ez zaizkio baliagarri poesia kanonikoak erabilitako iruditeria eta lexikoa, eta ereduaren oreka eta neurria apurtuz aurkitzen du bere nitasunak **espresatzeko** bidea. Berria - Kultura

Ez ditut itzulpenak hori eta horrenbestez aipatzen, baizik eta itzulpen lana izan delako tradizioaren eta hizkuntza-ren arteko osmosiaren eragile nagusi; haien bitartez zabaldu zelako mundu guztira modu zehatzago, konplexuago, ederrago batean **espresatzeko** artea. Bernardo Atxaga

Horrekin urrats handia egingo genuke, Euskal Herriaren borondatea argiki adierazten eta **espresatzen** denean, Estatuek akordio hori errespetatu beharko dutelako. Berria - Euskal Herria

2 (da aditz gisa)

Isiltasunaren bitartez **espresatzen** ziren bi aktore ematen zuten. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espresatzen da (3); **espresatzen denean** (3); **espresatzen duen** (3); **eta espresatzen** (3)

---

espresibitate *iz* adierazkortasuna.

Sormenari zor dion **espresibitatea**, erregistro ezberdinen kolorea, estilistika oso bat da idazleak erakutsi, eman nahi duena. Iñigo Aranbarri

Lanak eskatzen duen bezala, **espresibitatea** (*vibrato* eta *legato*-a) izan zen nagusi. Berria - Kultura

Espresibitatean dago, egotekotan, poesikera honen balioa, hiltzearen aipamen dramatiko errepikatu horretan. Xabier Mendiguren Elizegi

Argotera heltzeko, beharrezkoa da **espresibitatean** irabaztea, gaztelerarik gabe ezin uler daitekeen euskañolari gain hartzea. Iñigo Aranbarri

Kantuari ekiteko, hobe zuen zuzendariak askatasun handixeagoa eman izan balio taldeari; hala ere **espresibitate** oparoz esaldi luzeak ateratzeko gai izan zen. Berria - Kultura

Batasunean bada, nolanahi, garapena antzemateko tarterik: *Anfetamiña*-ren bat-batekotasunak *Narraztien mintzoa*-ko lerroen **espresibitate** gorenean aurkitzen du gailurra. Berria - Kultura

Neologismo bat edo beste erabiltzen badu ere, hitz eta erranmolde zuzen eta frogatuak aski zaizkio **espresibitate** handia lortzeko. Janbattitt Dirassar

---

espresibo *izond* adierazkorra.

Hegoaldeko "euskara urbano" famatua dela eta, badirudi kalkorik gabe ezin daitekeela **espresiboa** izan; Dirassarrek hautatu gaiari oso ongi doakio idazkera eta ederki frogatzen digu kalkorik gabeko hizkuntzak ez duela zertan zurruna eta soraioa izan behar. Janbattitt Dirassar

Umore ona duenak, konturatu gabe, hiperboleak edo hitz jokoak bezalako hizkuntzaren alde **espresiboak** erabiltzen dituela. Berria - Euskal Herria

Inori ez zaio oharkabean joan Lukrezioren sonoritate eta biribiltasun **espresiboa**. Xabier Amuriza

Mundu propio bat, Txekia berri bat sortu zuen poemetan, bere sinpletasun **espresiboarekin**. Berria - Kultura

Arrazaren haria berreskuratu nahian ari zeneko sasoiaz ari zen Saizarbitoria, nostalgia apur batekin bera ere, eta nolako euskara eskasa, gazbakoa, urria, erkina, ezdeusa zeukan azaldu nahi zuen; esaera ezin **espresiboago** batez adierazi zuen berak: "Donostian, garai hartan kaleko sukalde batean erabiltzen ziren 300 hitzak, horretara mugatzen zen nire euskara". Xabier Mendiguren Elizegi

---

espresibotasun *iz* adierazkortasuna.

Horra **espresibotasuna**! Ez huen hori nahi? Iñigo Aranbarri

---

espresio *(orobat **espresione** g.er.)* **1** *iz* adieraztea, adierazpena, adierazpidea.

Izatekotan ere, malenkonia lauso baten **espresioa** baino ez zen, ezpainen ezkerraldean zen okerdura txiki batek ematen zion malenkonia lausoaren **espresioa**, horixe soilik. Unai Iturriaga

Erakunde publikoak balio batzuen **espresioa** dira, haien aurkako borrokak ere balio batzuk espresatzen ditu. Joxe Azurmendi

Harrezkero, filosofoek onartu egingo zuten artea, batez ere literatura, artistaren emozioaren **espresioa** edo adierazpena zela. Askoren artean

Talde armatuak atsekabearen **espresio** bat baino ez dira. Berria - Mundua

Volksgeist espainolaren doktrina, krausista bereziki, angustia nazional baten **espresio** bezala ikusten da. Joxe Azurmendi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Politikan jeinu espainolaren **espresio** jatorrena inperioa da. Joxe Azurmendi

Gazte mugimenduaren **espresio** ezberdinak jaialdi komun batean uztartzea. Berria - Euskal Herria

Makila hau, esku lanaren **espresio** finena, garbiena, euskaldunena. Herria

Aurpegian ez daukat **espresio** berezirik, nahiz eta errelajatu itxura ematen dudan eskuak poltsikoetan sartuta dauzkadalako. Bernardo Atxaga

Ezin zuten, bada, onartu, erromantze trakets batzuk arima espainolaren **espresio** tipikoa eta jatorra izan zitezkeenik. Joxe Azurmendi

Zaharrak begiratu zion deus esaten ez zuten begiez, edo agian zorabio sideral baten erakusgarri zen **espresio** huts batez. Jon Alonso

Espresio alai, apur bat maltzur eta bizkorra aurpegi haragitsuan. Urtzi Urrutikoetxea

Emazte abandonatuaren **espresio** mindua. Koro Navarro

Etxea da, egon dagoen arrazaren **espresiorik** garbiena. Joxe Azurmendi

Politikan jeinu espainolaren **espresio** jatorrena inperioa da. Joxe Azurmendi

Etsipenezko **espresio** aldagaitz ia-ia malenkoniatsua aurpegian eta begi gaztainkaretan. Urtzi Urrutikoetxea

Azalaren kolorea arrosa, ezpain handi samar eta goxoen **espresioa** maitagarria. Urtzi Urrutikoetxea

Egunkariko argazkian agertua zen kaputxadunaren begien espresiorik eza aurkitu nion Gabini, edota, zehazkiago, **espresio** aratz beti berdina. Iñaki Iñurrieta

Burlaizea ere arindu egin zitzaion, eta **espresio** gozoagoa zuen. Josu Zabaleta

Beltzarana zen, begi distiratsu eta irtenekikoa, aurpegia **espresio** bizikoa, hitz-arina, adimen bizkorrekoa. Josu Zabaleta

Aurrerantz makurtzen zen aurpegi haren **espresioa** baretasunezkoa, nolabaiteko kontsolamenduzkoa iruditzen zitzaidan. Urtzi Urrutikoetxea

Zer espainola **espresio** kultural eta "ekumenikoetan" bilatzea. Joxe Azurmendi

Oinarrian bideogintza **espresio** estetiko bat besterik ez da. Berria - Kultura

Ahozko **espresiorako** trebezia eta baliabideak lantzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Berriro so jarri nintzaienean isilik zeudela konturatu nintzen, eta oso serio gainera: haserrezko **espresioz**, bakoitza bazter batera begira. Xabier Mendiguren Elizegi

Monaren aurpegian ere ez zegoen inongo **espresiorik**, inongo emozio-arrastorik. Fernando Rey

Haren ezpainak ez ziren irribarre bat osatzera heltzen, baina ahoko **espresioak** ez zuen behintzat ordu arteko keinu betizurik. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Topika honen guztiaren oihartzunak ez da zaila sumatzea tenore bertsuan Euskal Herrian, autokontzientzia nazionalaren **espresio** bilaketan. Joxe Azurmendi

Haren begi beltz zabalen barru-barruan, haren **espresio** ezaren atze-atzean, esku bat zegoen luzaturik eta txanpon baten eske. Anton Garikano

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurpegi-**espresio** izoztu bat. Harkaitz Cano

Sarri askotan bere burua lurrera bota eta, begi-**espresio** izugarriz, iraulka ibiltzen zen, lerdea zeriola. Askoren artean

Ezin izan ditu oinarri politikoa duten hainbat kale **espresio** ekidin. Berria - Harian

Zure lana beste arte **espresio** batekin lotu beharko bazenu zerekin lotuko zenuke? Ana Urkiza

Ziurtasun **espresioa** eta erakarpen ero hura. Aritz Gorrotxategi

Harengan ez zegoen bere espirituaren neurrigabekeriari eutsiko zion hormarik, eta gauzarik gordinenetara iristen zenean, zinismo-**espresio** bat agertzen zitzaion dizdizka begietan. Josu Zabaleta

5 norbaiten egoera adierazten duten hazpegiak.

Espresioa da sentimenduaren adierazlea. Berria - Euskal Herria

Annyk ez du **espresioa** aldatu; aurpegia aldatu du; antzinako aktoreek maskara aldatzen zuten bezala: kolpean. Monika Etxebarria

Ulermen hori lortzeko ahotsaren intonazioa, aurpegiaren **espresioak**, gorputzaren keinuak, erabilitako hizkera-moldeak edo ezaugarri psiko-fisiologikoak (bihotzaren erritmoa ala azalaren konduktibitatea kasu) analizatzen dira. Berria - Gaiak

Umbertoren begietako **espresioak** harritu egin ninduen. Anjel Lertxundi

Soari **espresioa** ematen dioten hazpegiak -bekainak, betondoak, irribarreak edo haserreak eragiten dituzten begi ertzetako zimurrak... - ezkutuan izaki, begiek ez zuten sentimen jakinik adierazten, kaputxaren atzean ezkutatzen zena sentimenez harantzago balego bezala. Iñaki Iñurrieta

Espresio urrutiratu eta aldi berean ikaragarri finkoa zeukan, bere ametsaren une jakin batean gelditu eta iratzarriko lukeen urratsa emateari uko egiten dionaren aurpegia. Berria - Kultura

Espresio desberdinak saiatu zituen: serioa eta zorrotza, adeitasunezkoa irribarre xume batekin, adeitasunezkoa irribarrerik gabe. Jose Morales

Hyde jaunak irabaziko du gatazka hau, zoritxarrez, horretaz konturatzeko Raimundo Silva oraintxe irribarrea nola egiten ari den ikustea nahiko, berarengandik espero ez genukeen **espresioarekin**, zinez **espresio** gaizto-gaiztoarekin. Jon Alonso

Zerbitzaria baso bat esne eta opil bat ematen ari zaio lan bila dabilenaren aurpegia duen gazte bati, gazteak egun horretan beste otamen naroagorik izango ez duela aurreikusten duenaren **espresio** bildua dauka. Jon Alonso

"Kartarik?", inolako **espresiorik** gabe galdetu zion Josebari. Iñaki Zabaleta

Ubillosen **espresiorik** gabeko aurpegiak ene kezka eta interesa piztu ditu: azken buruan, zer dakit nire psikiatrari buruz? Iban Zaldua

Gogoratzen ari nintzen ezpain-arteak ez zuen **espresiorik**, eta minutu batzuk lehenago handik zerion odol-arrastoa lehortuta zegoen, bai zoruan eta baita nire gogoan ere.

Anjel Lertxundi

6 finkaturiko esaldia.

Hantxe bixkotx-ontzi batzuen barruan pilaturik, herabe, luze eta argal, txiki eta mozkote, arrazoi ematen zioten ortzadarreko kolore guztiak ageri zituzten kandela puska haiek "des économies de bouts de chandelles" **espresioari**. Joxan Elosegi

Au pinot, a laver la coiffe Madame, a cul sallé, a rouchemerde, eta hatza hurrengo **espresioan** gelditzen zait, *au juge vif et juge mort.* Anjel Lertxundi

Sator-lana: maiz entzuten nion **espresio** hori aitari, gehienetan nazien lana arbuiatzeko. Anjel Lertxundi

Horren ondorioz, idazle-kastaren kaosa, anarkia, anabasa ere adierazten ditu *letren errepublika* **espresioak**. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina espresio (3); **emozioaren espresioa** (3); **espainolaren espresio** (4); **espresio bat** (4); **espresio bezala** (3); **espresio hori** (4); **espresioa eta** (4); **espresiorik gabe** (3); **espresiorik gabeko** (4); **eta espresio** (8)

---

espresiobide *(orobat **espresio bide**) iz* espresatzeko bidea.

Euskarak bere berea duen **espresiobidea** da bertsoa. Berria - Kultura

Daumier pintore eta eskultorearen lanak ikustea ez da erraza, neurri txikian pintatu zuelako, eskultura asko desagertu zirelako eta marrazkia **espresiobide** nagusitzat erabili zuelako. Berria - Kultura

Izan ere, margolariek hain zuzen ere margotzea beren **espresiobidea** zelako margotzen zuten; gauza bera hitzez esateko modua balute, dudarik gabe bide hori erabiliko bailukete: pintatu ordez, esateko dutena esan egingo lukete. Gaur egun jasotzen dugun euskal hizkera (hezkuntzatik, komunikabideetatik...) ez da egokitzen gazteon **espresio bideetara**. Ramon Saizarbitoria

Espresiobide zena -eta goi mailako eginbeharra!- tormentu zaio bilakatu. Jose Angel Irigaray

Espresiobide berrien bila. Berria - Kultura

---

espresiogabe *(orobat **espresio gabe**) izond* espresiorik ez duena.

Bulegoko lanari guztiek idazmakinetatik eskuak altxatu zituzten eta Alainen aurpegi **espresiogabeari** begira geratu ziren. Harkaitz Cano

Haren begiak, leihoan josiak, hain dira **espresio gabeak** ezen Paul D-k ez daki ezagutuko ote duen. Anton Garikano

---

espresione ik **espresio**.

---

espresionismo *(orobat **expresionismo** g.er.) iz* XX._mendeko arte joera, obren indar adierazkorra ezaugarri duena.

Andreieven obra guztiak hiru polo nagusi izan zituen: errealismoa, sinbolismoa eta **espresionismoa**. Jose Morales

Azkenik XX. mendearen hasierako margolaritzako mugimenduak azalduko ziren, **espresionismoa** edo kubismoa: hauek, ikusmenezko urruntze hori areagotuz, ideiak berak nahi dituzte irudikatu. Josu Zabaleta

Haren iritzian, "zentrikotasunaren" artea da **espresionismoa** (inpresionismoaren "azentrikotasunari" kontrajarririk), esentzialtasunaren, simetriaren, estatikotasunaren artea. Josu Zabaleta

Esan beharra dago, ordea, alemaniarrentzat beraientzat ere literaturako, poetikako eta antzerkiko **espresionismoa** zela batez ere eztabaidagaia, utopia, itxaropena. Josu Zabaleta

Espresionismoa [...] autismo baten eraginpean erortzen da, etikoki eta intelektualki antzua den kontenplazio batera kondenatzen du artista. naturalismo ororen kontra oihalera diren-direnean jaurtikitako kolore soilen artea da, nonbait, **espresionismoa**. Josu Zabaleta

Espresionismo abstraktuaren keinuaren aldean, eguneroko objektuen ilustrazioa hobesten du pop arteak. Berria - Kultura

Oinarrizko formen zaletasun bizia eta dinamikarako fanatismoa jotzen zituen Wilhelm Hausenstein-ek **espresionismoaren** ezaugarri nagusi bezala. Josu Zabaleta

---

espresionista *(orobat **expresionista** g.er.)* **1** *izond* espresionismoaren teknikaz baliatzen dena.

Pinturaren eremuan jarraitzeko, joera **espresionistak** badu bere izate egiazkoa, iraunkorra eta eragin handikoa. Josu Zabaleta

Margolari **espresionista** alemaniarra. Oskar Arana

Espresionismoaren inperialismo honek gerra ondoren jo zuen agian gailurra, arkitektura **espresionista** bat egiteko ametsak (ondo laburrak) egin zirelarik, eta zinema **espresionista** egin nahi izan zenean batez ere. Josu Zabaleta

Ideologia **espresionistak** dakarren gauza berria irudikapenaz haranztiko zerbait badagoelako ideia da. Josu Zabaleta

Eskola **espresionista**, zehatz hitz egiteko, alor batean baizik ez da egiaz mamitu ikusmenezko arteei dagokienez: pinturan (eta zertxobait eskulturan), eta gerra aurretik, gainera. Josu Zabaleta

Horixe iruditzen zaigu hirurogeita hamar urte geroago ere: alemaniar artista eta intelektual belaunaldi oso bat, 1920 inguru horretan, **espresionista** izan zela (eta hori baizik ez zela izan). Josu Zabaleta

Txikitan hain beldurgarria iruditzen zitzaidan aldare atzeko Kristo gurutziltzatu **espresionista**-antzekoa. Iban Zaldua

Bada espantuzko eta soseguzko giro limurtzailea Juan Mari Lekuonaren kultur sorkuntza osoan, kandelaren argi dardaratipean kopa hautsi bat agertuko lukeen koadro **expresionistarena**, giro samur eta zaurituaren modukoa. Berria - Harian

2 (izen gisa)

Georgia O'Keefferekin hasi zen New Mexicon; Hollywooden dekoratuak margotzen jardun zuen 1940etan, eta New Yorken **espresionista** abstraktu gisa lanean 1950etan. Xabier Olarra

-Zer gustatzen zaizkio: historikoak, garaikideak, klasikoak, **espresionista** alemanak, erromantikoak... Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

pintore espresionista (3); **zinema espresionista** (3)

---

espreski *(ETCn **72** agerraldi)* **1** *adlag* nahita, berariaz. ik **espres 2**.

Ez duzu lapurretarik egingo eta san Paulo apostoluak **espreski** dio ezen ebasleek ez dutela heredatuko Jainkoaren Erresuma. Juan Garzia

Amaren mandatua daukat zuretzat, **espreski** eskatu dit zuri abisatzeko. Josu Landa

Ele molde horiek ez dagozkio hari, Homerori baizik, zeinak **espreski** aipatzen baitu, Iliadan, Tebas Hekatompylos, eta Odisean, berriz, Proteo eta Ulises-en ahotan, Egipto baitio Nilo erran ordez. Juan Garzia

Nehork ez ninduen **espreski** maitatzen eta desertu horretan nirauen, nomada, aire kutsatua usnatzen, gerizarik gabe eta harreman arriskutsuen menpe. Itxaro Borda

Aldecoak ez bezala, Uribek **espreski** aitortzen digu Gasteizen gertatzen dela bere istorioa, Zumakera pasealekuko 16. zenbakian hain zuzen ere. Iban Zaldua

Hainbat lekutan ikusi ahal izan dut neronek hori **espreski**, hau da, positiboki debekatuta. Joxe Azurmendi

Esan beharra daukat gizakia ezin litekeela ona izan, berak egin nahi ez badu Jainkoak **espreski** nahi duen hura. Joan Mari Lekuona

Osaba Joanikoten bisitarekin hasi naiz eta hartarat mugatu nahi nuke **espreski**. Joan Mari Irigoien

Humboldtek, horrelako zerbaiten beharra eta komenentzia, berak aitortzen du **espreski**. Koldo Izagirre

Estatistikari zegokionez, Hannak ez zuen hartaz deus ere jakin nahi, patuan sinesten baitzuen, horri berehalaxe antzeman nion nik, berak **espreski** inoiz esan ez arren. Joxe Austin Arrieta

864. urteko kapitular batek dio **espreski** ohitura zaharra zela gizon libreek soldadutza egitea. Iñaki Iñurrieta

Ez genuen apezpikuaren konfirmazio eguneko bisita igurikatu eta xiriz bete kutxa benedikatua **espreski** horretarako hilerrian zegoen marmolezko hobira garraiatu genituen. Itxaro Borda

Kantuok gainera, Auok okasiorako **espreski** marraztutako irudiek lagunduta datoz, diskoaren liburuxkan. Berria - Kultura

Ohartarazi nuen, **espreski**, hori egia dela, gauzaren beraren irudi soila kontutan hartzen dugun neurrian. Piarres Xarriton

Berriro talde lana izan zen ardatz nagusia, eta **espreski**, guztiek eginiko lana defentsan. Berria - Kirola

Mertxe, Mario, eta Aitor, operan adituak diren lagunak Bostondik etorri dira opera hau **espreski** ikustera. Harkaitz Cano

2 (izenondo baten ezkerrean)

Profesoreak eztabaida **espreski** politikoa nahi baldin badu. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espreski aipatzen (4); **eta espreski** (3)

---

espreso ik **espres 5**.

---

espresso ik **espres 3**.

---

espresu ik **espres 5**.

---

espresuki *(ETCn 2.963 agerraldi) adlag* berariaz.

Frantziskok izan zuen beste lankiderik ere bere idazkien eraketan, Erregelaz **espresuki** esaten den bezala, eta barne-kritikak egiaztatzen duenez. zeren erabilera hori nola izan den eta nola erabili beharko litzatekeen zintzoki eta **espresuki** gomendatzen baita. Askoren artean

Behin desmundu behere hauetaraino amildurik, munduko zorne, ustel, herio eta ezinbizi guztia neuretzat **espresuki** egina dela sentitzen dut; biktima naiz, erruduna naiz, Arestik nahi zuen Gazteria Tristeko ideologo zahartua naiz. Iñaki Segurola

Kardinal hori **espresuki** etorria zen Perugiatik Asisa, han baitzegoen Aita santuaren gortea. Askoren artean

Jatorrizko testuan egileak ez du **espresuki** Axitako gaztelua aipatzen, baina, itxura guztien arabera, horixe eta ez besterik zuen gogoan Salkindaria idatzi zuenean. Martin Anso

Liburuxkan bertan ez da **espresuki** noiz argitaratu zen aipatzen, baina "Beñat idaztiak" bilduma Errepublika garaikoa da. Martin Anso

Sheilaren ondoan ez esertzeko **espresuki** egin nituen ahaleginak. Xabier Olarra

Droga biziki polliki ezarria zen hortarako **espresuki** muntatu gordegailu batean. Herria

Oharrok filosofiaren historikotasunaren arretazkoak dira oroz gainetik: **espresuki** didaktikoak izan nahi baitugu, zilegi izan bitez sinplifikazio batzuk. Askoren artean

Eta bizi hori nola iragan duzun orain arte idazten bazenu, enetzat **espresuki**, falta izanen naizen denbora horretan? Janbattitt Dirassar

Lockhart maisuak zu joateko eskatu du **espresuki**. Iñaki Mendiguren

Dotzena bat urte huntan, Miarritzen preseski izaiten da surf festibal bat, zoin-gehiagoka ospetsu batekin, zernahi jende urrunetik ere heldu **espresuki**. Herria

«Ticket sport» aitzina egunetako kirol ekitaldietan, Baionako besten kari haurren egunean, haur enbalditueen ongi etorria antolatua da **espresuki**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat espresuki (13); **batzu espresuki** (3); **da espresuki** (9); **du espresuki** (3); **espresuki adierazi** (3); **espresuki aipatu** (4); **espresuki aipatzen** (3); **espresuki debekatzen** (3); **espresuki egin** (5); **espresuki egina** (4); **espresuki egindako** (4); **espresuki eginiko** (3); **espresuki eskatu** (3); **espresuki etorri** (4); **espresuki etorria** (7); **espresuki etorria zen** (3); **espresuki idatzi** (3); **espresuki izan** (3); **espresuki izan da** (3); **espresuki muntatu** (3); **eta espresuki** (6); **ez da espresuki** (5); **hori espresuki** (5); **zen espresuki** (3)

---

esprimitu, esprimi(tu), esprimitzen **1** du *ad* zukutu.

Hura ongi garbitu, eta barnean mahats aleak **esprimitu** nituen. Patxi Zubizarreta

Lehenik, ahoan zaporea sentitzen dugu, mastekatzean jana **esprimitzen** dugunean, norbaitek belaki urtsua eskuan estutu eta lehortuko balu bezala. Xabier Amuriza

Gero **esprimitu** duguna aho-sabaiko zirrituetan eta mihi apatzeko poro bihurretan zehar hedatzen da. Xabier Amuriza

-Ez duk ulertzen, zabor horrek, Iraultzari eman diodala odola, eta orain zitroin **esprimitu** bat naizela? Pablo Sastre

2 irud/hed

Eta idazlea hitzak **esprimitzen** bizitzari. Berria - Kultura

---

esprin ik **esprin**t.

---

esprint *(orobat **sprint** g.er. eta **esprin** g.er.)* **1** *iz* bat-bateko azelerazio maximoa, eskuarki laskerketa baten amaieran egiten dena.

Bizikleta bateko aldea atera zion, gutxienez, eta hori asko da **esprint** batean. Berria - Kirola

Zazpi **esprint** jokatu dira Giroan eta bost irabazi ditu. Berria - Kirola

Izan ere Freireren **esprinterako** dohainak ez dira abiadurara bakarrik mugatzen, tokia inork bezala hartzen daki, eta inork ikusten ez dituen tarteak ikusten ditu tropelean mugitzeko. Berria - Kirola

Tropela ere gainean zuten, eta dena **esprinterako** prest jarri zuten aitaren batean. Berria - Kirola

Esprinterako kokapen borroka hasi da. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Esprinter berezia da, baina haren dohaina **esprint** luzean abiadura handiari eusteko gaitasuna izatea da. Berria - Kirola

Esprint betean zaudetenean hartzen dituzuen arriskuez jakitun al zarete? Berria - Kirola

Esprint itxian nagusitu zen Hushovd, bere indarrari etekina atera eta espezialista petoenak mendean hartuta. Berria - Kirola

Esprint motza izan zen, motza baina indartsua. Berria - Kirola

Amaiera estu eta ikusgarria burutu zuten bi bikoek, eta gipuzkoarrek azken **esprin** indartsua jo zuten garaipena lortu ahal izateko. Berria - Kirola

Esfortzu handi bat egin aurretik **sprint** txiki bat egitea onuragarria da. Berria - Gaiak

Bettinik ondo hartu zien aurrea Oscar Freire espainiarrari (Rabobank), Erik Zabel alemaniarrari (T-Mobile) eta Mirco Lorenzetto italiarrari (De Nardi), **esprint** oso estuan. Berria - Kirola

1990ean, hain zuzen, gerora Tourra irabaziko zuen Greg Lemondekin iritsi zen, eta Mendiak inoiz ezagutu duen **esprint** estuena jokatu zuten. Berria - Kirola

200 metroko distantzian munduko **esprint** biziena du. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esprint bideratzailerik gabe jardun zuen Freirek, baina aski ohitua dago dagoeneko babak eltzetik bere kasa ateratzen, eta eskarmentu horri esker lortu zuen garaipena. Berria - Kirola

Lehenengo aldiz, **esprint** edo txanpa motako estropada batek emango dio hasiera denboraldiari. Berria - Kirola

Esprint edo txanpa motako proba honek etorkizunik izan al dezake? Berria - Kirola

4 irud/hed

Saiatzen naiz liburuak amaitzen, baina beti ez da hain erraza: ez makutoan eramaten ditudanak eskasak direlako, baizik eta on asko daudelako munduan, eta denetara ezin helduta ibiltzen naizelako hiru geltokiko **esprint** horretan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurre esprintean (3); **azkarrena esprintean** (4); **azken esprinta** (3); **azken esprintean** (13); **baina esprintean** (5); **bateko esprintean** (4); **da esprintean** (6); **da esprintetan** (3); **esprint edo txanpa** (3); **esprint jokatu** (4); **esprint jokatu dira** (3); **esprinta emakumezkoak** (6); **esprinta gizonezkoak** (6); **esprintari ekin** (3); **esprintean aise** (3); **esprintean aurrea** (5); **esprintean aurrea hartuta** (4); **esprintean bukatu** (4); **esprintean bukatuko** (5); **esprintean erabaki** (27); **esprintean erabaki da** (3); **esprintean erabaki zen** (17); **esprintean erabakiko** (7); **esprintean erabakitzen** (7); **esprintean hartu** (5); **esprintean hartu zien** (3); **esprintean irabazi** (11); **esprintean irabazi du** (3); **esprintean irabazi zuen** (4); **esprintean lortu** (7); **esprintean lortu zuen** (5); **esprintean nagusitu** (6); **esprintean nagusitu zen** (5); **esprintean sartu** (7); **eta esprinta** (3); **eta esprintean** (14); **etapa esprintean** (8); **etapa esprintean erabaki** (4); **ez zen esprintean** (4); **garaipena esprintean** (4); **helmugako esprintean** (5); **irabazi zuen esprintean** (5); **kilometro esprintean** (3); **lasterketa esprintean** (4); **lehen etapa esprintean** (3); **nagusitu zen esprintean** (7); **taldekako esprinta** (8); **taldekako esprinta emakumezkoak** (4); **taldekako esprinta gizonezkoak** (4); **txikietako esprintetan** (5); **zen azkarrena esprintean** (3); **zen esprintean** (11); **zen esprintean sartu** (4); **zuen esprinta** (3); **zuen esprintean** (6)

---

esprintatu, esprinta(tu), esprintatzen du *ad* esprinta egin.

Besteak, borroka bizian, **esprintatzen**, tropeleko gurpil azkarrenaren, Petacchiren arrastoa hartzeko. Berria - Kirola

«Eta **esprintatu**?» «Esprinter petoak igoeretan atzean gelditzen direnean, txukun». Berria - Kirola

Eta berriz zakurrak, gibeletik lasterka "En plus, ils sprintent, ces c..."; "Gainera, **esprintatzen** die..." Gaitzeko trenpuan nintzela ari nintzen ene baitan. Piarres Aintziart

---

esprinter **1** *iz* esprintetan nagusitzen den lasterkaria.

Arnasarik hartu gabe ere berdin-berdin egin ahal izango lituzke **esprinter** batek hamar segundoak. Irene Aldasoro

70 bat lagun geratu ziren aurrean, baina **esprinter** asko atzean. Berria - Kirola

Lehen mailako bi **esprinter** eta talde ona izan arren, garaipenik gabe segitzen dute Tirrenon. Berria - Kirola

Emakumezkoen Giroko laugarren etapan, Bareggion hasi eta amaitutako 118 kilometrokoan Buetler **esprinterra** izan zen azkarrena. Berria - Kirola

Karrerista bat (**esprinterra**, inondik ere) aurreratu zuela laugarren pedal-kolpean. Berria - Kultura

Esprinterrak, epe laburreko energia-erreserba erabiliz, orduko 23 miliako abiaduran egin ditzake ehun yarda. Irene Aldasoro

Distantzia jakin bat egiteko behar den energia-kostua ez dago, **esprinterraren** kasuan izan ezik, abiaduraren mende. Irene Aldasoro

Antolatzaileek ibilbidea samurtzea erabaki dute eta **esprinterrentzat** neurri-neurriko itzulia izango da. Berria - Kirola

Dominguezek **esprinterren** taldeen laguntza izan zuen etapako azken zatian. Berria - Kirola

Atzamarrak Pietatearen ipurmasailetan iltzaturik, segundo gutxi batzuetako atsegin eternala, gerri kolpez lagunduriko isurialdia, **esprinterrek** helmugako marra gainean jotzen duten giltzurrun kolpea-a-a-a... Unai Iturriaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lotto Domo taldeko Robbie Mc Ewen **esprinter** australiarra izan zen azkarrena Butterkindeneko helmuga marran. Berria - Kirola

Urteetan gora doa **esprinter** alemaniarra eta ezinean ari da denboraldi hasieran. Munduko **esprinter** onenen alboan egon zara. Berria - Kirola

Niretzat **esprinter** perfektua da, onena. Berria - Kirola

Esprinter berezia da, baina haren dohaina esprint luzean abiadura handiari eusteko gaitasuna izatea da. Berria - Kirola

Ezaugarriak: **Esprinter** petoa da McEwen. Berria - Kirola

Gizon azkarra da Cunego, baina atzo **esprinter** azkar-azkarrak hartu zituen mendean, Riccardo Ricco herrikidea, esaterako. Berria - Kirola

Niri gehiago gustatzen zait Iban Mayoren tankerako txirrindularia, **esprinter** soila baino. Berria - Kirola

Esprintean lortu ditu orain arte bere garaipen guztiak Davisek, baina **esprinter** hutsa baino gehiago da. Berria - Kirola

Euskal tropeleko **esprinter** bakarretakoa da Koldo Fernandez de Larrea. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina esprinter (4); **bi esprinter** (3); **esprinter onenak** (3); **esprinter petoak** (3); **esprinter soila** (4); **esprinter soila baino** (4); **esprinterren taldeak** (4); **esprinterren taldeen** (4); **eta esprinter** (3); **eta esprinterrek** (3); **munduko esprinter** (3); **tropeleko esprinter** (3)

---

esprobatu, esproba(tu), esprobatzen *(orobat **esprabi**) ipar* du *ad* sentitu, probatu.

Hor **esprobatu** beharko da ilargiaren gainean doi bat egoiteko ahala eta ere egonalditto baten ondotik urrunago joaitea, esperientzia berrietarat, bixtan dena. Herria

"Jinkoak nahi üken balü, züez eginen züan popülü bakoitx bat: bena berak emanari zoinen fidel zinatekeien **esprabi** nahi üken dü. Herria

Barazki **esprabiak** ere egiten dituzte baratze handi batetan batzu ari dira ere bide bazter antolatzen haitzur ta palekin. Herria

---

espropiatu, espropia(tu), espropiatzen du *ad* desjabetu.

Israelek Galilean lurrak **espropiatu** zizkiela salatzean hil zituzten. Berria - Mundua

Eremu hori sobera kario pagatu dela, aise merkeago ukaiten ahalko zela **espropiatuz**, denbora poxi bat gehiago igurikaturik ere. Herria

espropiazio *iz* espropiatzea, desjabetzea.

AHTren hainbat zati egiten hasteko obrak esleitzeko prozesua hasi dutela eta lurren **espropiazioa** ere gauzatzen ari direla gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Paulen ikuspegi berdinak zeuzkana (gero eta nabariagoak bihurtu ziren) lurren [...] **espropiazioei** buruz. Anton Garikano

Jukos petrolio konpainiaren **«espropiazioak»** Errusia «kaosera eta iraultzara» eramango duela esan du du kartzelan dagoen Mikhail Khodorkovski konpainiako presidente ohiak. Berria - Ekonomia

---

espuela *iz adkor* azken basoserdia, azken kopa.

Espuela bat hartu, behintzat. Jon Arretxe

Espuela Marujan joko diagu. Iñaki Iñurrieta

Espuela bat baino ez, azkena! Jon Arretxe

---

espulsatu ik **espultsatu**.

---

espultsatu, espultsa, espultsatzen du *(ETCn **12** agerraldi; orobat **espulsatu** ETCn **6** agerraldi) ad* norbait toki batetik bota edo aterarazi.

Komunatik **espulsatu** eta ostrazismora kondenatu ninduten. Bernardo Atxaga

Lana **espultsatu** egin da kaletik, kuixidadearen izenean, estetikaren izenean, efikaziaren izenean, lan-egoera hobearen izenean, espekulazioa bitarte. Berria - Kultura

---

espultsio *iz* espultsatzea.

Kurdiarrak **espultsioaren** kontra gogor egin zuen giza elkarteen laguntzarekin. Herria

Nicolas Sarkozy Barne ministroak esan zuen beste sei etorkin kanporatzeko **espultsio** prozesua abian dela. Berria - Mundua

---

espuma *iz* kautxu natural edo sintetikozko gaia, harroa eta arina.

Hormazarraren kontra, **espumazko** koltxoiak pilatzen ari ziren bi mutili. Pablo Sastre

---

esputa *iz* ** karkaxa.

Meir Witchell doktoreak dio barrearen kutsagarritasuna **esputa** direlakoen fermentazio berehalakoaren ondorio dela, listu izpiak xirripaz hedatzen baitira. Xabier Olarra

---

estabilitate *iz* egonkortasuna.

Bestalde, arintasuna ez ezik traineruaren forma ere oso garrantzitsua da, estua eta zorrotza bada **estabilitate** gutxiago izango baitu. Berria - Kirola

Diru laguntza ugari eskaini duten amerikarrek arkipelagoaren egoera politikoa osoki kontrolatu nahi dute: lehenik, beren interes ekonomikoen babesteko **estabilitatea** behar dute. Ramuntxo Etxeberri

Sobiet Batasunak giza multzoei halako garantia-sorta bat ematen zienez gero Kapitalismoak berak ere antzekoak eskaini beharra zeukalako, bestela ideologiaren arloan lekua gal zezakeen, eta nork jakin?, haren **estabilitatea** kolokan jar zitekeen. Iñaki Heras

Gure presidenteari nirekin une atsegin askoak igaro zitzakeela agindu nion, ezin argiago agindu ere, arazoen zama pixka bat arintzen lagunduko niola eta, horrekin batera, ez nuela inondik ere haren familiaren **estabilitatea** kolokan jarriko, nik berarekin egotea aski bainuen. Patxi Zubizarreta

Traidoreak dira, ekintza honekin suntsitu nahi dutenak bakea, **estabilitatea**, konfiantza giroa eta Istanbulen irudia, Turkiako perla dena. Berria - Mundua

Orain Gobernuak, literatoak, politiko arrazoizkoak, Aita Santua bera, problemak "desdramatizatzen" eta jendea lasaitzen ahalegintzen dira, **estabilitatean** eta orekan gaudela konbentzituta bizi behar dugu denok. Joxe Azurmendi

---

estabilizatu, estabiliza(tu), estabilizatzen du *ad* egonkortu.

-Horregatik dauzkazu aldamio hauek, inon ez duzula integratu eta **estabilizatu** nahi adierazteko? Pako Aristi

Pentsamenduaren betebehar behinena, garai hartan, ordena sozial eta politikoa **estabilizatzekoa** zela, ematen du. Joxe Azurmendi

---

establezimendu **1** *iz* etxea; denda, saltegia.

Turisten elikatze bizkorrerako dauden ehundaka **establezimenduen** artean bat gehiago. Iban Zaldua

Horri esker, adibidez, "produktuaren gastronomia" (erretegietan ohikoa dena) eta hainbat eratako **establezimenduak** (sagardotegiak, landa-etxeak, etc.) indartu eta hobetu egin dira eta idazlan honetako beste atal batean aipatu dugun "kontsumo kritikoa" zabaldu da, hein xume batez. Edorta Agirre

Ekoizle-hornitzaileak segitu nahi badu, banatzaileak baldintzak aldarazi egingo dizkio, bere **establezimenduak** bakarrik horni ditzan (monopolioa) eta enpresaz fida dadin, ekoizle horrekin enpresa fidatzen ez bada ere. Edorta Agirre

Ostalaritzako **establezimenduetan** eta aisialdiko tokietan, hala nola jatetxeetan, tabernetan, zinemetan eta antzokietan, erretzeko tokiak egokitzea zehazten du. Berria - Euskal Herria

Herriko merkatu tradizionalak (aipa ditzagun Donostiako zoritxarreko Bretxa, San Martin, Gros, Antigua, etc.) eta hainbeste saltoki biziki murriztu edo erabat eraitsita, horien ordez, self sistemaz funtzionatzen duten denda eskergak eta fast food txarra saltzen duten **establezimenduak** indartuz doaz. Edorta Agirre

Kutxa horretantxe sartu ditugu oilasko-etxe, pizzategi eta gosea kentzeko balio bai baina gustura nekez dasta daitekeen jakia ematen duten **establezimendu** ireki berriak, oro har. Edorta Agirre

Turisten elikatze bizkorrerako dauden ehundaka **establezimenduen** artean bat gehiago. Iban Zaldua

Gerraondoko Afganistanetik inportatu omen diren **establezimendu** hauek apainduran, nagusiek arazorik ez: pabilioi, ukuilu edo baserri zenari erratza pasa (higitu gabe), sagardoa egin edo erosi eta mahai ugari antolatu dituzte, aulkirik, oihalezko aho-zapirik, komunik gabe. Edorta Agirre

Nafarroako Gobernuko Kontsumo Zerbitzuak 40 **establezimendu** aztertu ditu ekainaren 28a eta uztailaren 23a bitartean txaleko islatzaileei buruzko araudia betetzen ote duten edo ez jakiteko. Berria - Euskal Herria

Haiek eskainitako datuen arabera, 28 frankizia sare daude, 10.000 lanposturekin 2.326 **establezimendutan**. Berria - Ekonomia

2 (izenondoekin)

Kargua eman zidaten andre Lukatxevskiren establezimendua bijilatzeko, garai hartan **establezimendu** ospetsua, non ofizialek ohitura zuten gauerdi ondoan elkartzeko. Matías Múgica

Oporraldian ere ahalorde orokor bat utzi zion, legez onartutako botererik zabalenekin, bai eta edozein departamentu edo **establezimendu** publikotan -Banco Nacional Ultramarinon bereziki- ordezkaritza izateko. Bego Montorio

Dordoina ibaiak hiria zeharkatzen du eta **establezimendu** termal bat dago. Joseba Urteaga

· Baina, militar **establezimenduen** nahigabeko azpiproduktu bezala sortzeaz gain, kolonia zibilak berez helburu gisa ere ezarri ziren. Iñaki Mendiguren

3 legea; araua.

Era berean, basailu handiek, beren mende zituzten jaunekin ados jarrita, agiri edo **establezimendu** batzuk eman zituzten beren dukerri edo konderrietako auzitegietan, inguruabarren arabera. Iñaki Iñurrieta

Bilauak ez zeukan bere jaunaren epaitegia faltsutzat jotzerik; hala dio Défontainesek; eta **Establezimenduak** obrak berretsi egiten digu hori. Iñaki Iñurrieta

---

establezitu *izond* ezarria.

Gertaera bitxi bat besterik ez den honetatik haratago, antzinako greba eta protesta erak zaharkituta geratzen ari zaizkigunean, proposamen originala dateke hau botere **establezituen** eta justizia ezaren aurka protesta egiteko: komun-manifestaldia. Harkaitz Cano

---

establitu, establi(tu), establitzen da *ad* kokatu.

Eztabaida horietan alderdi erromantiko edo tradizionalistatik Böhl de Faber merkatari baina literaturazale hanburgotarra, Cadiz-en **establitua**, eta haren emazte Francisca de Larrea, "doña Frasquita", nabarmendu dira. Joxe Azurmendi

---

estadio **1** *iz* zenbait kirol egiteko prestaturiko barruti handia, eskuarki harmailez inguratua.

Xistoaren atzean **estadioa** egingo da, eta leku zabala utziz egingo da, jende askorentzat, inolako estuasunik gabe, atletak ikusteko lekua utziz. Santiago Iruretagoiena

Realak Anoetako **estadioa** birmoldatzeko, bai Udalari, bai Diputazioari eskainitako proiektuak bere lehen oztopo larria aurkitu du. Berria - Kirola

-Partida bertan behera geratu da -hots egin zuen McGonagall andereñoak megafonoaz, jendez lepo zegoen **estadioan**. Iñaki Mendiguren

Isiltasun beldurgarria ari zen zabaltzen **estadioan**. Iñaki Mendiguren

Jendez betetako **estadio** baten erdian banengo bezain deseroso sentitzen nintzen. Alberto Ladron Arana

Ez nituen egun asko egin portura ematen zuen etxetxoan: Paris erori berri, juduen deportazioak hasi ziren eta zurrumurruak zebiltzan milaka atzerritar atxilotzen zituztela belodromo eta **estadioetan**. Anjel Lertxundi

Jendea **estadioetara** joango bada, marka berriak behar dira. Joxerra Garzia

Harry eta talde osoa **estadioko** irteerara abiatu ziren, artean beren jantzi gorriekin. Iñaki Mendiguren

Estadioko harmailetan Marta futbolariei begira, freskatzen hasi duenez eskuak galtzarbeetan sartu eta pauso txikitan gora eta behera dabilela. Xabier Mendiguren Elizegi

Iñake, Xabi eta Ritxi **estadioko** aparkalekuaren aurrean, furgonetan sarturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Hamaikak hurbiltzean, eskola osoa quidditcheko **estadiora** abiatu zen. Iñaki Mendiguren

Saint Denis **estadioko** lanak amaituta daude. Berria - Kirola

Zelaia: Causeway **Estadioa** (10.000 ikusle). Berria - Kirola

Anoeta **Estadioko** prentsa aretoan eskaini zuen prentsaurrekoa, arratsaldean. Berria - Kirola

Egun batean klubeko presidenteari Anoetako **estadioko** sarrerako giltzak eskatu nizkion, gauez sartu nahi bainuen, bakar-bakarrik, **estadioaren** hutsean zer sentitzen nuen jakiteko. Joan Mari Irigoien

Beisbolaren garai loriatsuenak itzultzen ari direla Bronxeko **estadiora**. Harkaitz Cano

Estadioa eraberritzeko proiektua aurkeztu zuen atzo Realak; 102 milioiko aurrekontua du, eta 2007rako amaitu nahi dute. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Anoetako **estadio** txikira joan eta han ikusi dugu, lagun batekin entrenatzen, pistari bueltak eta bueltak ematen. Berria - Kirola

Non egin ordea halako **estadio** erraldoia Manhattanen? Harkaitz Cano

Ziztu bizian **estadio** osoari eman zion bira, Fredekin eta Georgerekin lasterketan. Iñaki Mendiguren

Penaltien txanda 4-2 amaitu zen, Kairoko Nazioarteko **Estadioa** bete zuten 80.000 zaleen zoramenerako. Berria - Kirola

Datorren asteazkenean kirolaren gunea izango da berriz, pisu jaurtiketako probak bertan jokatuko baitira, olinpiar **estadioan**. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Nolabait ere, errusiar mendiarena egiten hasi zen **estadio**-ertzaren ingurutik, euriaren zilar-izaran zehar Gryffindorreko zutoinak ikusten ahaleginduz. Iñaki Mendiguren

Bakeroz jantzitako pertsona arrunt bat **estadio** erdigunerantz doa gitarra akustiko bat lagun bakar hartuta. Harkaitz Cano

· Poza Lizentziatuaren kaletik aurrera nindoan orain eta San Mames futbol **estadioa** ikus nezakeen han aurrean. Joxemari Iturralde

Futbol **estadio** oso bat hankaz gora botatzeko lain leherkari neukan ipurpean, gainera merkea eta segurantziaz erabiltzeko modukoa. Hasier Etxeberria

3 eboluzionatuz doan zerbaiten fase bakoitza.

Suposatzen da, azkenik, historia bera artikula daitekeela batasun handitan · **estadio** edo faseetan- euren baitan dagokien euren kohesio-hastapena biltzen dutenak. Xabier Arregi

Sei edo zortzi zelulako **estadioan** dagoen enbrioi bati kendutako zelula batekin blastomero edo birekin egiten da. Berria - Gaiak

Honi buruz, nik diot: suaren eta egurraren arteko antzekotasunaren **estadioan** gauden artean, ez dugu aurkituko ez atseginik, ez gozotasunik, ez bakerik, ez pozbiderik. Joan Mari Lekuona

Gero, ordea, kaskarinetik asko zuen batekin nengoela uste izatetik beste **estadio** batera pasatu nintzen: intentsitatea jartzen zuen egiten zuen guztian, eta ni ez nintzen nor haren txeren iturri oparoa itsutzeko. Anjel Lertxundi

Eraketa diskurtsibo bakoitza ez da iragaiten atalase batetik bestera jarraian, heltze biologikoaren **estadio** naturaletatik legez. Xabier Arregi

Garai enuntziatiboak, zeintzuk artikulatzen diren, baina eurekin nahastu gabe, kontzeptuen denboraren gainean, aro teorikoen gainean, formalizatze **estadioen** gainean eta hizkuntza eboluzioaren etapen gainean. Xabier Arregi

4 antzinateko Grezia eta Erromako luzera neurria, 185 metroren baliokidea gutxi gorabehera.

Palestretan peristilo karratuak edo luzangak egin behar dira, eta inguru guztian duten ibiltokiaren perimetroak bi **estadio** neurtu behar ditu, grekoek *diaulos* deitzen duten neurria. Santiago Iruretagoiena

Munduaren zirkunferentziari dagokionez, eguzkiaren bidearen, gnomoaren ekinokzio-itzalaren eta zeruaren inklinazioaren arabera aztertu ondoren, eta kalkulu matematikoak eta metodo geometrikoak erabiliz, Erastotenes Zirenekoak aurkitu zuena kontuan hartzen badute, alegia, hark berrehun eta berrogeita bi **estadio** dituela. Santiago Iruretagoiena

Hasieran zortzi **estadioko** ibilbidea zuen (1.500 metro). Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aguilera estadioa (9); **anoeta estadio** (3); **anoeta estadioa** (5); **anoeta estadioan** (22); **anoeta estadioan jokatuko** (4); **anoeta estadioaren** (4); **anoeta estadioko** (3); **anoeta estadiotik** (5); **anoetako estadioak** (3); **anoetako estadioan** (6); **anoetako estadioaren** (3); **cardiffeko milurte estadioan** (3); **companys estadioan** (4); **denis estadioan**

(4); **dinamo estadioan** (3); **donostiako anoeta estadioan** (10); **estadio batean** (4); **estadio berria** (5); **estadio berriaren** (4); **estadio horretan** (4); **estadioa bete** (7); **estadioa bete egin** (3); **estadioa beteta** (3); **estadioa izango** (3); **estadioa izango da** (3); **estadioan jokatuko** (12); **estadioan jokatuko da** (6); **estadioaren egituran** (3); **estadioaren egituran jarritako** (3); **estadioaren inguruan** (3); **estadioko lanak** (3); **estadiotik kanpo** (3); **futbol estadioa** (3); **gerland estadioan** (3); **giuseppe meazza estadioan** (4); **grozniko dinamo estadioan** (3); **lluis companys estadioan** (4); **mames estadioan** (4); **meazza estadioan** (4); **miarritzeko aguilera estadioa** (7); **milurte estadioan** (6); **olinpiar estadioa** (6); **olinpiar estadioak** (3); **olinpiar estadioan** (10); **olinpiar estadioan jokatuko** (3); **saint denis estadioan** (4); **san mames estadioan** (4); **udal estadioa** (3); **zen estadioa** (3)

---

estadista *iz* estatuko aferetan jakinduria eta esperientzia handia duen pertsona.

Aipu historikoak eta «etorkizuna gurea da eta guk idatziko dugu, besteekin hitzartuz, baina gure eskuekin idatziko dugu» gisako esaldi biribilak erabiliz, **estadista** baten neurriko agerraldia egin zuen Hitzok jaulki zituenean, zuzen zebilen Pandit Nehru: **"Estadista** modernoa naiz; Erdi Aroko problemak konpondu behar ditut, baina". Berria - Harian

Politiko ideala pentsatu ohi da izango litzatekeela, **estadista** trebez gain, pertsona on bat litzatekeena. Joxe Azurmendi

---

estadistika ik **estatistika**.

---

estadistikoki ik **estatistikoki**.

---

estado ik **estatu**.

---

estadu ik **estatu**.

---

estafa *iz* norbaiti iruzurraren bidez dirua edo kideko zerbait kendu, eskuarki haren fede onaz baliatuz.

Nor izan litekeen hasi dira pentsatzen, txukun jantzia dago eta ez noski lapur arrunt bat, baina apika bai **estafa** gogorren bat eginiko abokatua adibidez. Koldo Izagirre

Gaur, "zorion" hitza hain da debaluatua, publizitateari, merkatuari lotua, rose bonbon kolorekoa, "zozokeria", "huskeria", **"estafa** handia" hitzekin kide dena. Ana Urkiza

Estafarik larrienak agintaririk zientifikoenak lortu dabez. Txillardegi

---

estafadore *iz* estafak egiten dituen pertsona.

Oraindik ez didate barkamenik eskatu, lotsagabe hutsak dira, **estafadoreak**. Berria - Kultura

---

estafilino *iz*

Hor daude liztorrak, beste intsektu batzuei eztenaz mugimeneko gingiletan ziztada bat eman, paralizatu eta beren umeentzako janaritegi gisa balio duen spoliariumera botatzen dituztenak; hor dago **estafilinoa**, bere mota bereko beste baten gainera traizioz oldartu, lotu, zauritu eta zukuak xurgatzen dizkiona. Josu Zabaleta

---

estafilokoziko *izond* mulkoetan bilduriko bakterio esferikoei dagokiena.

Meningitis kriptokozikoa milioi bat pertsonako bostek izan ohi dute, sifilitiko aseptikoa, Haemophylus influenzae delakoa hilabetetik 4 urte bitarteko haurrek izaten dute, neumokozikoa helduen artean agertzen da normalean, **estafilokozikoa**, tuberkulosoa, aseptikoa, gram negatiboek sortua eta meningokozikoa daude, beste batzuen artean. Berria - Euskal Herria

---

estai *(orobat **estaia**)* **1** *iz* solairua.

Galerietako batean sartuko zarete, galeriak hiru **estai** izanen ditu, pisu bakoitzean zelda ilarak alde bietan. Joseba Sarrionandia

Etxe hura ere, teilatutxo bat fatxadan, hanpatua, hezetasunez arras ilun, ur zikinetarako ontziaren kaxa berdaxka bana **estai** bakoitzean, jostailu handi bihurtzen zen bi haurrentzat. Karlos Zabala

Estai bakar bat daukaten etxeei behako triste bat botaz iragan nuen igande arratsalde heze grisa. Piarres Aintziart

Etxe horrek, lehenago, ba omen zituen hiru **estai**, zola baino beherago; **estaietan** beheragoena, tunel bat, errekaren azpitik zihoana Luzaideko partean zegoen etxeraino, zubi muturrean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bi **estaietan**, hogoi bat ikasgela. Herria

Mateo Zugasti kalean, 33, 4. **estaian**. Txillardegi

Laster hupatu ginen dakizun bosgarren **estai** hartarat. Janbattitt Dirassar

Enbalditik ez dute horra sartzerik, kanpoko eskaleren gatik eta barnera eta igangailu elektrikorik ez baitago hirugarren **estairaino** hupatzeko. Herria

Méhudindarrek bigarren **estai** guztia zuten berena. Karlos Zabala

Goi-goian, etxeko azken **estaian**. Txillardegi

Anitzek parte hartzen zuten, beherean eta lehen **estaian**. Marzel Etxehandi

Iduritu zitzaion gizonari, pareko etxebizitzaren laugarren **estaiako** leiho baten gibeleko erridaua mugitzen zela. Ramuntxo Etxeberri

Hemen, hoteleko hogeita hamargarren **estaiatik** hiri guziko eraikuntza erraldoiak miresten ahal zituen. Ramuntxo Etxeberri

Hameka **estaiko** dorre bat egiten ahalko omen zen delako etxearen tokian. Herria

Santa Izpirituko auzoan kokaturiko etxebizitzako hirugarren **estaiko** lo-gela hertsian zeukan mirailean bere buruaren mirestea maite zuen. Itxaro Borda

Izena eman ez zuen koronel hura, gu lankide guztiok goiko **estaiko** bulego nagusian bildu ondoren, sekula baino garbikiago mintzatu zitzaigun: [...]. Txillardegi

Itzal bat ikusten nuen han gora, azken **estaiako** teilatu peko azken lerroan, leiho baten gibelean: Ontsa hiza, Patxi?, erran zidan. Filipe Bidart

Aurrealdeko imajina ugariek eta dorre bikoitzak, bi **estaitako** klaustro balkoidun ederra, dena iruditu zitzaidan zoragarri. Txillardegi

Londresen bezalako bi **estaiako** autobusak eta tranbiak. Ramuntxo Etxeberri

Bi airekok jo dituzte Manhattan deitu hiri partean bi etxe, biziki gora eraikiak, ehun **estaiaz** goitikoak. Herria

2 irud/hed

Ezkiladorre handi bat, bere hiru **estaiekin**, harriak herdoilduak dauzkatela. Piarres Aintziart

Ezker eta eskuin, hiru **estaietako** oheak. Piarres Aintziart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bigarren estaia (3); **bosgarren estai** (3); **bosgarren estaian** (3); **estaia eta** (3); **etxeko lehen estaian** (3); **hirugarren estaian** (4); **lau estai** (3); **laugarren estaian** (3); **lehen estaian** (13); **lehenengo estaian** (3); **seigarren estaian** (3)

---

estaia *iz ipar* egonaldia.

Estaia : Urririk Herriko elkarteendako. Herria

---

estaiagabe *izond* estaririk gabea.

Zurezkoa zen eta **estaiagabea** , baina zoko guziak ahal bezain ontsa baliatzen genituen lastairak 4 estaietan, batzuk besteen gainean, lehena lurretik 25 zentimetrotan eta laugarrena teilatuari hurbil. Marzel Etxehandi

---

estainu ik **eztainu**.

---

estainustatzaile ik **eztainuztzaile**.

---

estaka *iz* makila lodia. ik **garrote**.

Hori egin ondoren, tiratzeko txikotak laxatuta jarriko dira aurrena; amarrak makinaren bizkarraldean luze jarriko dira, eta ez bagenu non loturik aurkituko, inklinatutako **estaka** batzuk sartuko dira lurrean, eta inguruan zanpatuz ondo finkatuko dira, gero sokak **estaka** horietan lotuz. Ondoren, sokak inguruan jarriz eta amarrak **estaketan** finkatuz, makina eroso erabiltzeko prestatuta egongo da. Santiago Iruretagoiena

---

estakuru **1** *iz* aitzakia. ik **desenkusa**.

Zure gutuna eta zure egun xarmant hartako xehetasunak irakurririk, hogei aldiz tentatua izan naiz eginkizun baten **estakurua** eman eta zure oinetara lasterka joateko, eta zuri eskatzeko ezen izan zakizkion, nire alde, zeure zaldunari desleial, zeren, ororen buruan, ez baitu bere zoriona merezi. Jon Muñoz

Besarkada luze baten **estakurua** hautsiz Fonsecak bost metro goragoko letrerorantz egin zuen atzamarrez, eta belarrira esan: [...]. Josu Landa

Egia da funtsean, zangoak arrunt ahulduak ditu, baina **estakuru** hori ez banu ukan, beste zerbait beharko nuen berdin pentsatu. Janbattitt Dirassar

Ene gustuko aise ari dira kolegio horretan, pedagogia integratua dela **estakuru** . Itxaro Borda

Salbuespenak badira eta denak ez dira ere beti legez-lege jokatzen, hau dela edo hura dela **estakuru** . Herria

Batean hau eta bestean hura, dena jestu eta dena **estakuru** ! Herria

Hies delakoa aitzaki eta **estakuru** nerabilan, baina gero eta itzaliagoa neukan gogoa. Jose Angel Irigaray

Haiekin gelditzeko galdegin arren frankotan, egun osoko unadura **estakuru** , nire ganberara jotzen nuen, gorriturik, berehala. Xabier Montoia

Holakoetan orai izaiten da lehen baino makur gehiago, urte guti barne zernahi etxe berri egin baita arrunt ur bazterrean, toki pollitak direlako **estakuruan** . Herria

Nago, ez dutenez ainitzek, egoera hortan, diru ainitz irabazi nahi, eritasun zonbeiten sendatzeko **estakuruan** . Herria

Iduritu zitzautan gure denboran bezala, horien denboran ere, gisa batez Nafarroa bat zela, gure garaian ofizialki, hauentzat adixkidetasunez, hain gogotik biltzen ziren oraino Izpegi gaineko oihanean, mus partida baten **estakuruan** . Michel Oronoz

Arrangura batzu hasiak dira agertzen, elkarte berri bat ere ari da hortaz bazterrak harrotu nahiz, euroa sartuz geroz, eta ez euroaren faltaz, bainan euroaren **estakuruan** , ainitzetan euro ehuneko edo zentimoak bazterrerat uzten direla, deus baliorik ez balute bezala. Herria

Ohorearen **estakuruaz** baliaturik. Joan Mari Irigoien

Egia erran, dena **estakuru** , laneko gutizia duzue eskas zuek! Itxaro Borda

Danceny desenkusatu zen, alditxartuxe zela erranez; eta nik, ez bainuen **estakururik** , kantatu behar izan nuen. Jon Muñoz

Parisen beti **estakuru** zerbait kausituko dute euskal-departamendurik ez egiteko. Herria

- **Estakururik** ez! -kontregin zion osaba Joanikotek-. Joan Mari Irigoien

Ez nuen solasa luzatzeko **estakururik** erantsi nahi-. Aingeru Epaltza

Aldez aurretik ikusi nuen bazkalondoa tristea izanen zela; eta asperretik salbatzeko, gutunak idatzi behar nituelako **estakuruan** gelaratu nintzen. Jon Muñoz

Mariren eta haren semearen gerizatzeko egoten zela eman zuen **estakurutzat** , baina denek bazekiten egiazki, Julene deitu Elixabeteren alabaren gaztaina koloreko begi handiek zutela han egonarazia. Elena Touyarou

Egia da ere ordea, irakaspen eder horiek, mila **estakururengatik** eta interes zehatz batzuen eraginez, ahanzten dituztela usuegi gure doktore irakasle maisuek. Piarres Xarriton

Kontu bat baitzen latinoamerikarren eta bereziki dominikar erbesteratuen zirkuluetan sartu ahal izateko **estakuru** , aitzakia edo koartada moduan ustezko tesi baten idazketa erabiltzea eta beste kontu bat, oso bestelakoa, tesia benetan idaztea eta Unibertsitatean aurkeztea. Edorta Jimenez

2 (izenondoekin)

Pentsatu dut hobe dela isilik irautea puska batean, ez dela komeni gure begiraleak hain goiz molestatzea, hauek ez dutela **estakuru** handirik behar beren lagun hilak mendekatzeko. Koldo Izagirre

Egia erran, UDF-tiar eta ezkertiarrek eman diote gisa hortan jokatzeko **estakuru** ederra. Herria

Edo ez adituarena egiten da hor gaindi, edo beti zerbait **estakuru** tzar jalgitzen da egin behar litakeen haren ez egiteko denen buru. Herria

Gero, **estakuru** arin batez desagerturik, berehala jinarazten du beraren ordez maitale laidotua. Jon Muñoz

Ikuskaritza **estakuru** soila zen. Elena Touyarou

Gainerako gaiak **estakuru** hutsak ziren: langile arazoak, laborantza, kultura, euskara, denak jende-biltzeko aitzakiak. Itxaro Borda

Agertu ez direnek ere bazuketen **estakuru** onik, kurtsora ez etortzeko. Eneko Bidegain

3 (hitz elkartuetan)

Ez zien erantzunik eman "Barkatu, andrea" **estakuru** -hitzak murmurika itzuri zitzaizkien lagun bihozberenei. Mirentxu Larrañaga

Estakuru -antzeko musutxoak ematen zizkion, arin-arin, hatzetan gora eta behera. Mirentxu Larrañaga

Dena **estakuru** -mestakuru, erantzuna beti luzatu duk. Daniel Landart

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten estakurua (4); **dena estakuru** (6); **edozein estakuru** (3); **estakuru bat** (9); **estakuru baten** (3); **estakuru ederra** (8); **estakuru gisa** (5); **estakuru hori** (4); **estakuru hortan** (3); **estakuru mestakuru** (3); **estakuru on** (5); **estakuru on bat** (3); **estakuru zerbait** (3); **estakurua eman** (4); **estakurua emanez** (3); **eta estakuru** (5); **zerbait estakuru** (3)

---

estalagmita *(orobat **estalakmita** g.er.) iz* karearrizko luzakina, estalaktitaren kidekoa, haitzuloetako lurrean sortzen dena.

Beti izan naiz sortzen hasi berri den **estalagmita** bateko lehen tanta bezain baikorra, Are beherago joan ziren, eta lurpeko aintzira baten ondotik igaro ziren, non estalaktitak eta **estalagmitak** hazten baitziren sabaitik eta lurretik. Anjel Lertxundi

Kobazuloak, ordea, zabalduz zihoan beti ere, eta estalaktitaz eta **estalagmitaz** betetzen; Cortok bere farola altxatu, eta gela eder eta espaziotsu batean zeudela ikusi zuen. Iban Zaldua

Kantaldi berezia eskaini zuten atzo Isturitzeko harpeetan, gisuzko estalaktita eta **estalagmiten** arteketatik; gaur ere berrestekoa dute esperientzia arratsean. Berria - Kultura

Eta zer dira haurraren goiko eta beheko hortzak, kobazuloko estalaktitak eta **estalagmitak** ez badira? Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estalaktitak eta estalagmitak (3)

---

estalaktita **1** *iz* haitzuloetako sabaietik zintzilik sortzen den kareharrizko luzakina.

Beste haitzulo bat zen, erabat bestelako [...]: puntu batean ganga abaildurik zegoen, eta **estalaktitek** , goitik behera beharrean, aldamenera zeuzkaten puntak, zikoina-moko antzera. Juan Garzia

Meatze-zulo baten ahoa ageri zen, zeinak arras antzinako izan behar baitzuen, ezen bazen han nire eskuko hatzen luzerako **estalaktitarik** gangatik zintzilik. Juan Garzia

Eta ez ahaztu, gizakiarekin batera, leize, kobazulo eta harpe ilunetan bizi zela saguzaharra, batez ere, **estalaktita** eta estalakmita bizigarriak xurgatuz. Patziku Perurena

Areto handi hartako **estalaktitak** ikusgarriak ziren, haizea nonbaitetik sartu eta, ur tantei lurrera zuzen erortzen utzi gabe, **estalaktitak** bultzaka lantzen baitzituen koral itxura emanez. Aitor Arana

-Ez dut inoiz jakin -oihu egin zion Harryk Hagridi orgaren hotsaren gainetik-, zein da estalagmita eta **estalaktitaren** arteko aldea? Iñaki Mendiguren

Kobazuloak, ordea, zabalduz zihoan beti ere, eta **estalaktitaz** eta estalagmitaz betetzen; Iban Zaldua

2 irud/hed

Beste egun batean hatzaz sudur-zuloak arakatzen ibili nintzen, **estalaktiten** bila. Joan Mari Irigoien

Komisarioak painueluarekin xukatu zuen kopetako **estalaktita** jarioa. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estalaktitak eta estalagmitak (3

---

estalarazi, estalaraz, estalarazten du *ad* estaltzera behartu.

Gorpua tapaki batez **estalarazi** zuen. Joxemari Urteaga

Egun batean nire amaren aldetiko aitonarekin oholtza gainera igo nintzen, eta belarria apaiz bati adi jarrita, bere apaiz anaien kantuen artean izen hori **estalarazten** zuela konturatu nintzen. Xabier Kintana

Benetako zinemagile batek, apeza izanagatik, gorpua berriro **estalarazi** eta deus ez ukitzeko aginduko zukeen, kameraren bila alde eginda. neskak behera egin zuen hark harriz **estalarazitako** bidean eta gauean galdu zen. Koldo Izagirre

---

estalberritu, estalberri, estalberritzen du *ad* estalki berria jarri.

Euritakoak **estalberritzen** dira. Irene Aldasoro

---

estaldu, estal(du), estaltzen du *ad* estali.

Hurrengo berbak haizearen hotsak **estaldu** zituen eta ez nituen aditu. Edorta Jimenez

---

estaldura **1** *iz* estaltzen duen gauza. ik **estalki**.

Egoitza eta bere oihal-etxola eta honen **estaldura** , katigailu, ohol, zehar-egur, zutabe eta oin. Elizen arteko biblia

Egin bi **estaldura** oihal-etxolarako: bata gorriz tindaturiko ahari-larruzkoa, eta honen gainetik bestea, larru finezkoa. Elizen arteko biblia

Ehunak tresna bidez antolatu eta irazkiak eta bilbeak jarraian elkartuz egindako asmakizunarekin gorputzak **estaldura** batekin babesteaz gainera, jantziak apaingarritasuna gehitzen dio txukuntasunari. Santiago Iruretagoiena

Halaber, egurrezko egitura zaharberrituko da, eta baita **estaldurak** ere. Berria - Harian

Antza denez, domoaren gainean bildutako elurraren pisuak eragin zuen 5.000 metro koadroko **estaldura** erortzea. Berria - Mundua

Gorriz tindaturiko ahari-larruzko **estaldura** , larru finezko **estaldura** , kutxa estaltzeko kortina. Elizen arteko biblia

Bide horretan, titanio oxidozko **estaldurak** hobeak direla diote adituek, porlanak baino eremu handiagoa hartzen dutelako. Berria - Gaiak

Aurkikuntza horri jarraiki, koloneko **estalduraren** zelulak aztertu dituzte Erresuma Batuko MRC zentroko eta Open Unibertsitateko ikertzaileek.Gizakietan, ile-zelulazko **estaldura** dute barrutik zirkuluerdi formako kanalek, eta jariakinez beterik daude. Berria - Gaiak

Berak zaharraren eta berriaren arteko gatazkak deskribatzen ditu, erdietsitakoaren erresistentzia, oraindik sekula esan ez denaren gainean ezartzen duen errepresioa, bera ezkutatzeko darabiltzan **estaldurak** . Xabier Arregi

Hegazti horiei egindako analisiek erakutsi dute birusak H5 **estaldurako** proteina bat duela, baina atzo oraindik ez zuten argitu proteina hori zein motatakoa zen. Berria - Harian

2 (izenondoekin)

Tesiaren aitzakiaz Latinoamerikako erbesteratuekin biltzeko eta hitz egiteko aukera bazuen eta, agente sekretua zen aldetik, bereak zituen zereginen **estaldura** polita zenik ezin ukatu. Edorta Jimenez

Erdi-zaldi, erdi-hegazti zen zerbait ikusteak eragin zizun lehenengo zirrara gainditu ondoren, hipogrifoen **estaldura** distiratsua preziatzen hasten zinen. Iñaki Mendiguren

Elizaren hormari itsatsita, kanpandorrera igotzen zen egurrezko eskailera ikusi nuen, zurezko **estaldura** batez babestua. Txillardegi

Zazpi igerilari hil dira ur parkeko kristalezko **estaldura** hautsita. Berria - Mundua

Barruko azala eta kanpokoa erabat bereizirik izan zirenean, liburu haren jatorrizko **estaldura** agertu zen. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan)

Jeremiasek lurrean sartu dituen harri horien gainean ezarriko ditut haren tronua eta gaineko oihal-**estaldura** . Elizen arteko biblia

Bagoiaren zolan ikatz errauts **estaldura** lodi bat bada. Michel Oronoz

Elikagaien osagai kimikoak, listuaren edo urdail-urinen eraginez disolbaturik, odolera igarotzen dira urdailaren edo digestio-hodiaren barne-**estalduratik** zehar. Irene Aldasoro

Fase horietan, pepsinak eta urdailaren barne-**estaldurako** zelulek sorturiko beste entzima batzuek hartzen dute parte. Irene Aldasoro

4 irud/hed

Volkswagenek eurogunetik kanpo egiten dituen eragiketentzat lehiakideek baino ganbio arriskuen **estaldura** txikiagoa edukitzeak ere ez du mesederik egin. Berria - Ekonomia

Sindikatuak dionez, PSOEk prestatutako lege aurreproiektuak ez du herritar guztien erabateko **estaldura** bermatzen. Berria - Euskal Herria

Dauden behar guztiei erantzuteko gai ez izateaz gain, **estaldura** publikorik ez duela bermatzen dio. Berria - Ekonomia

Lan duinerako eskubidea, babes soziala, etxebizitza eskubidea, edo **estaldura** soziala «deuseztatuta» daudela dio HZk. Berria - Euskal Herria

ELA, LAB, ESK eta CGT sindikatuek pasa den asteazkenean bildu ziren Correoseko lurralde zuzendaritzarekin eta sindikatuon arabera, bertan hitzartutako proposamenak «alde positiboak» izan baditu, hala nola, lanpostuen **estaldurari** dagokiona. Berria - Ekonomia

Eskaera sozialei legezko **estaldura** ematea. Berria - Euskal Herria

5

Langabeentzako laguntza, berriz, %9 igo eta **estaldura** tasa %56,2ra heldu zen Gizarte Segurantzan pentsiodunen kopurua 2002ko maila berberean mantendu zen, %0,6an hain zuzen. Berria - Ekonomia

6 telekomunikazio zerbitzuak hartzen duen hedatura.

Kanpinean telefonoak **estaldurarik** ez zuen, eta kanpineko zerbitzuetara joan ginen deitzera. Josu Zabaleta

Hasteko han ez omen daukat telefono **estaldurarik**. Edorta Jimenez

Hemen ere **estaldurarik** ez. Aingeru Epaltza

7 itsasontzietan, kubierta.

Biharamunean bizimodu normala egin nuen ontziko **estalduran** Santanderren, eta karel artean arreba, koinata eta lobaren bisita izan nuen. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barne estaldura (5); **estaldurarik ez** (3); **estalduraz bilduko** (4); **estalduraz bilduko dute** (4); **eta estaldura** (4); **finezko estalduraz** (6); **finezko estalduraz bilduko** (4); **larru finezko estalduraz** (6)

---

estalgabetu, estalgabe(tu), estalgabetzen du *ad* estalkia kendu.

Dontzeilarik begiratuena ere laxo askoa duzu, ilargiari **estalgabetuz** gero bere edertasuna, Bertutea bera ere ez zaie itzurtzen kalumniaren erasoei. Juan Garzia

Erdi Aroko elizaren paretaren zati bat ikusteko aukera dute bisitariek, abuztuan hasitako lanak **estalgabetu** dutena. Berria - Kultura

Zizeron ikertzea derrigorrekoa zen hizlarigaientzat; beronen eragina soilik ikuspegi formalera mugatzen bazen ere, Agustin deuna Zizeronen hizkuntzaren jantzi bikaina mirestera ez ezik barne edukia ere **estalgabetzera** iritsi zen. Imanol Unzurrunzaga

---

estalgailu *iz* estaltzeko gailua.

Horixe da André Bazinek bere "Peinture et cinéma" (1950) artikuluan egiten duen oinarrizko oharpena, filma "zentrifugotzat" definitzen baitu, eta haren koadroa **"estalgailu"** mugikor bat bezala (eta ez muga gaindiezin eta betiko bezala). Josu Zabaleta

---

estalgaitz *izond* estaltzen gaitza.

Eztula eta dirua ezkutuan gordetzeko zailak diren bezala, maitasunaren sua ere **estalgaitza** izan ohi da, eta azkar baino lehen sumatu zituen norbaitek gaztetxo haien arteko pasioak sortzen zituen ketxoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

estalgarri **1** *iz* zerbait estaltzen duen gauza.

Lur gainean lo egin behar izaten nuen, **estalgarririk** gabe, hotzikaretan, haurdun egon arren. Gotzon Garate

Horregatik, kendu egingo diot neure garia bere garaian, bai eta ardoa ere bere sasoian. Kendu egingo dizkiot neure artilea eta lihoa, haren larrugorriaren **estalgarriak**. Elizen arteko biblia

Gaizki beztitzen dela egozten diozu; bai noski: apaindura oro kaltegarri du; **estalgarri** oro itsusgarri: soilik laxotasunari emana denean dago zinez zoragarri. Jon Muñoz

Bostetan han agertu zen emakumea, soineko berdearekin eta aurpegia **estalgarri** beltzez estalirik. Gotzon Garate

Garapen iraunkorra laguntzea du helburu, esaterako, PICADA (**Estalgarri** fotovoltaiko berrien kutsadura gutxitzeko ahalmenaren azterketa) proiektuak. Berria - Gaiak

Beharbada, **estalgarri** ilunenaren azpian, arreta handiz, konfiantzako emakumeren batzuk lagun hartuta, saia daitezke beren zaletasunak betetzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emakumeak bere **estalgarria** kendu zuen. Gotzon Garate

Amore eman du Tomek tira egiten duen aldera, badoaz gorantz txalupa euriaren **estalgarri** hartuta. Koldo Izagirre

Urdinak ziren begiak, mineral kolorekoak, sakonak oso, sekula ikusi gabeko itsasoak, aldegiterakoan, bi istila utzi izan balitu bezala, hantxe, gatz urdinaren **estalgarri**. Felipe Juaristi

Ateratzen ari zaizkion malkoen **estalgarri**, betaurrekoak ipini ditu lehendabizi. Joan Mari Irigoien

Zetazko mihise handi dirdaitsuak **zeuzkan estalgarri**, eta urrezko ertzekoak ziren mihiseak gora altxatzen zituzten lokarriak. Karlos Zabala

Hitza, hitzaren **estalgarri**. Iñigo Aranbarri

Dirua, akatsen **estalgarri"**. Patxi Zubizarreta

Etxe eta artegi guztietako **estalgarri** ageri ziren arbel beltzaireek are kutsu tristeagoa ere eransten zioten eskualdeari. Txillardegi

Zizel gupidagabea bere indar guztiarekin erabiliz, batere **estalgarri** edo leungarririk gabe erakusten ditu mundu guztiaren begien aurrean. Jose Morales

2 (izenondo gisa)

Alderdien Legearen balioa azpimarratu du Lopezek, horri esker «erakunde terroristen **estalgarri** diren indar politikoak egotea eragozten delako». Berria - Euskal Herria

Amnesty International erakundeak atzo salatu zuenez, AEBetako CIA zerbitzu sekretuek konpainia **estalgarriak** erabiltzen dituzte «terrorismoaz» akusatutako susmagarriak beste herrialde batzuetara eramaten dituela estaltzeko. Berria - Mundua

3 ***buru-estalgarri***

Guztiek, kapela eta **buru-estalgarriak** erantziz, begirune eta debozio handiz hartzen zuten. Askoren artean

Haien artean, armeniarrak zeuden, jantzi luzeak soinean eta mitra antzekoak **buru estalgarri**. Karlos Zabala

---

estalgi ik **estalki**.

---

estalgile **1** *iz* emakume-tratua estaltzen duen pertsona. ik **estaltzaile**.

Bera ez zelako **estalgile** bat ez andre-tratulari bat, ezta apaiz bat ere ezkontzak ospatzeko. Juan Garzia

Nahi duten bezala deitzen diete; gezurrezko izenak dituzte denek: Blanca, Marina, Estrella, Africa... **Estalgileak** eta emakumezainak berriz poliziak babesten ditu, putazainez eta politikarien morroiez baitago osatuta. Josu Zabaleta

Gaur Bartzelona kaleko etxe bat bisitatu dut; emakumezaina Cotorrita deitzen dioten maritxu bat da, **estalgileari** emakumeak bahitzen laguntzen diona. Josu Zabaleta

2 (izenondo gisa)

Lehenbizi, ostatuetako ateetan itxaroten zuen; eta ezagutzen zutenek harresien atzera eramaten zuten, Châte-let-en azpira, edo Nafarroako kolegioaren kontra; gero, hotz handiegia egin zuenean, atso **estalgile** batek bainuetara sarrarazi zuen, non ugazabandreak aterpea eman baitzion. Juan Garzia

---

estalgune **1** *iz* gune estalia.

Lehenik eta behin txabolaren alboan harrizko **estalgune** bat eraiki zuten forjarako. Joanes Urkixo

Eguzkia goi-goian dago oraindik, eta Sofia etxe ondoko **estalgunearen** gerizpean dabil usain-belarrak muselinazko poltsatxoetan sartzen. Patxi Iturritegi

Bertara hurbiltzenago, hiri-kanpoko bihitegiak, ferratzailearen **estalgunea**, ardi triskilatu berrien eskorta nabarmenagotzen hasi zen Nora zeru urretsuaren kontra. Anjel Lertxundi

Estalgune bateko hesi gainean gelditu ziren kalesak bere inguruan zekartzan hiru gabiraiak. Anjel Lertxundi

Gindax eta lurrin-zulagailuetarako **estalgune** txiki bat pitzatutako haitz baten goialdean zegoen, mendiko aterpe baten gisa berean. Lopez de Arana

2

Gero, berriak sortu dion aztoramendua gaindituta, mimosa **estalgunearekin** lotzen duen bidezidor-labirintotik hasi da astiro irristatzen. Patxi Iturritegi

3 irud/hed

ETAko kideei «azpiegitura laborala eta **estalgune** ekonomikoa» ematea leporatzen zien, gainera, Acebesek. Berria - Euskal Herria

---

estali, estal(i), estaltzen **1** du *ad* zerbait zerbaiten bidez ageritik edo bistatik kendu. ik **tapatu**.

Dena ke beltz batek **estaltzen** zuen, isiltasunaren gorputz. Koldo Izagirre

Burdin bidea **estaliko** baitute bi zubien arte hortan eta azkar **estaliko**, gainean hiru ehun bat bizitegi eraikitzeko gisan. Herria

Landaretza basak harriak janda zituen, hilarriak erabat **estaltzeraino**, eta haietako zenbait hautsita zeuden, edo higiturik, gorpu-lapurren banda bat dena aienatuz pasatu ondoren bezala. Ramon Saizarbitoria

Kontxa bizien larru batek **estaltzen** ditu harkaitzak. Koldo Izagirre

Mendebal eta hegoaldean zeru-muga, inguruko mendixkak **estaltzen** dituzten pino eta pago oihanek tapatua da. Marzel Etxehandi

Nik, maitekiro, abesbatzaren trofeoa bere lekura itzuli nuen, oinarria kokatuz, milimetrikoki, utzitako hutsunea **estaltzen**. Iban Zaldua

Gorotza lurrez **estaliko** duzue. Elizen arteko biblia

Eguzkia **estaltzen** zuen hodei iluna desagertu zenean, argia nagusitu zen. Agustin Otsoa

Taxoareko gimnasioan entrenatu ziren gorritxoak, elurrez erabat **estalita** jarraitzen zutelako zelaiek. Berria - Kirola

Sareta zikin batek erdizka **estaltzen** zuen leihoa. Koro Navarro

Elurrak bere hil-jantzi zuriarekin **estaltzen** zuen mendia, zeru hodeitu berun-kolorearen azpian. Koro Navarro

Laster urak **estaliko** du. Julen Gabiria

Egiptok, pertsiarren garaian, ez zuen Itsaso Gorrian muga; ez zeukan Nilo ibaiak bere uraldietan **estaltzen** duen lur-zerrenda luze eta estua baizik. Iñaki Iñurrieta

Ez badiozu nire herriari joaten uzten, larrapoteak erakarriko ditut bihar zure lurraldera: dena **estaliko** dute, lurrazala ikusten ez dela uzteraino. Jose Antonio Mujika

Tenpluaren behea ere, nahiz barnean nahiz kanpoan, urrez **estali** zuen. Elizen arteko biblia

Saski luzexkoak eta otzara motzak errenkadan jarrita zeuden, oihalez edo lastoz **estalirik**. Karlos Zabala

Izbetako leihoek ez zuten kristalik, haietako batzuk piltzarrez edo nekazarien oihal latzezko beroki lodiez **estalirik** zeuden. Jose Morales

Ni ez nagoenean lantuka hasten da; horregatik, joan aurretik zapi beltz batez **estaltzen** diot kaiola, eta lo egiten du, gaua dela uste baitu. Juan Kruz Igerabide

Hala zioen laborategi nagusiko atea **estaltzen** zuen paperezko poster erraldoiak. Fernando Morillo

Inork ez dio gabon-musurik emango, inork ez manta gainetik bota eta ondo **estaliko**. Antton Olano

Zedrozko oholez **estali** zituen tenplu barneko hormak, behetik hasi eta goiko habeetaraino, barne osoa zurez jantziz. Elizen arteko biblia

Garai batean bel-beltza izan zuen ilea, partez, bekoki gainean erortzen zen, eta kizkur ugariek **estaltzen** zizkion loki sakonak; kizkur horail biziak ziren ordea haiek. Koro Navarro

Berriro **estali** zizkidaten begiak eta gora eraman ninduten, gela txiki batera. Berria - Euskal Herria

Apaintzeko balio zuen komoda bat; mahaitxo biribil bat, kakorratz lanez **estalia**; jarleku batzuk, farfaila finez egindako karratuak babesgarri. Karlos Zabala

Tunika astinarazten zuen bakoitzean, Frantziskok eskuineko besoaz **estaltzen** zuen saihetseko zauria. Askoren artean

Hainbeste gorputz elkarren ondoan, hainbeste bular, hainbeste triangelu formako oihal-puska pubisa **estaltzen**: ez zegoen pertsonalizatzeko modurik, gorputzak masa informe batean galtzen ziren. Bernardo Atxaga

Bi hego buruaren gainetik altxatuak zituen, beste bi hegan egiteko zabalduak, eta beste biek gorputz osoa **estaltzen** zioten. Aitor Arana

Txamarra horren azpian, gona motz batek -iluna hori ere-soineko bat **estaltzen** zuen, orkatiletaraino erortzen zitzaiona eta beheko azpilduran brodatu hits batzuk zituena apaingarri gisa. Karlos Zabala

Bi eskuekin **estaltzen** zuen aurpegia, inork bere samina ikus ez ziezaion. Joxean Agirre

Mattin ikusi nuen, anaia, eskuek betartea **estaltzen** ziotela, irria atxik ezini. Joan Mari Irigoien

Burua **estaltzeko** egunkariko orri zabal bat hartu eta kapelatxo bat egin besterik ez daukazu. Pako Aristi

David Oliamendiko maldan gora zihoan negarrez, burua **estalirik** eta oinutsik. Elizen arteko biblia

Begiak **estalita** ere egingo luke. Berria - Kirola

Kolpetik esku batez **estaliko** du ahoa, algara eragozteko. Josu Zabaleta

"Niri ere", esango nuen beharbada, eta Monikak eskuarekin ezpainak **estaliko** zizkidan, askotan egiten zidan moduan. Joxean Agirre

Esku indartsuaz adar ostotsu bat erauzi zuen, gorputzeko alde lotsagarriak **estaltzeko**, biluzik baitzegoen. Juan Kruz Igerabide

Hilabetetan hazitako ilea, piztia batena baino latzagoa bera, artilezko boneta batez erdi **estalia**. Felipe Juaristi

Ahots dardararik gabe, bestearen orduko eskuzabaltasuna aspaldiko adiskidetasunaren bermetzat harturik, etorkizunaren ate, iraganaren estalki eta hilobi zen itsasoaren aurrean, bere bihotzaren atea berak ere irekiz, itxurakeriaren ohe astun baina segurua **estaliz**, esan zuen. Felipe Juaristi

Egin ahuntz-hilezko beste hamaika zapi, egoitza **estaliko** duen oihal-etxola eratzeko. Elizen arteko biblia

Kamiseta bat baino ez zeraman jantzia, kuleroak ozta-ozta **estaltzen** zizkiona. Patxi Zubizarreta

Zoldak dena **estaltzen** zuen, belus urdina, belarritakoak, gurutzetxoa. Karlos Zabala

Ilargiak Eguzkiaren %22,2 inguru **estaliko** du, Bilbotik ikusita, eta zertxobait gehiago (%24,7) Iruñetik behatuta. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Frantzian gaindi, bi marka handik **estaltzen** dute goi-maileko esnearen merkatua. Herria

-Hire heriotza ziztrina hutsaren hurrengo duk, egin didaan mina **estaltzeko** -esan zion, negarra zeriola. A! lurralde hura guztia gau polarrak **estaliko** balu, Siberia osoa hainbat hilabetetako gau iraunkor horrek inbadituko balu! Juan Kruz Igerabide

Harantzagoko kaleetatik zetorren trafiko hotsa kanpaiek **estaltzen** dute. Lourdes Oñederra

Alonsoren itzalean ibili behar izan zuen, haren distira **estali** ezinik. Berria - Kirola

Malabaristen jokoa **estaltzen** duen isiltasun horretan zehar. Josu Zabaleta

Gisa guziz, ez da euro xoil horrekin **estaliko** erien asurantza kutxak duen ziloa. Herria

Defizit publikoa **estaliko** duen dirua ez dago zergen bidez biltzerik. Berria - Mundua

Kirol mitoen balentriek bestelako arazoak **estaltzeko** helburuarekin. Berria - Kirola

Gabezia hori **estali** beharrean, euskarrien lerroa indartzea erabaki zuen deustuarrak. Ez egin kasurik, ez entzun ere; ez izan horrelakoen gupidarik, ez barkatu, ezta **estali** ere errua. Berria - Kirola

Ene hitza ez da biluzia, baina hostoz josia, gorputzaren negua hitzaren udaberriaz jantzi eta **estali** nahi banu bezala. Joan Mari Irigoien

Probintzi hiruburu batean izan daitekeen jokamolderik finenaz **estalirik** zegoen hori guztia. Jose Morales

Eskuzabal izango zarete berarekin eta bere premia **estaltzeko** behar duena emango diozue maileguz. Elizen arteko biblia

Dirurik gabe, zaila zen hutsune horiek fitxaketekin **estaltzea**. Berria - Kirola

Lau xurgada gabe erabaki nuen aferaren ukitu pertsonalak lehengo goizaldeko gertakariak **estaltzen** zituen lainope alkoholiko berera igortzea, oraingoz, alderdi profesionalen fabore. Aingeru Epaltza

Pausun beste errepikagailu bat jarri beharra da, frekuentzia berdinarekin, Hendaia, Pausu, Biriatu, Irun eta Hondarribiko itzalguneen **estaltzeko**. Herria

Gortzeko moduan jarri behar izan zuen diskoa kanpoko suzko erroberen burrunba hazkorra **estaliko** bazuen, bere barrengo suzko erroberena ez ezik. Iñaki Segurola

Izu-lekua zen hiria, isiltasun-lekua, isiltasunak kea bezala zulo guztiak **estaltzen** zituen, agerikoak ez ezik, ezkutukoak ere bai. Felipe Juaristi

Nire begitarako, domina hark ez zuen gerran egindako egun urrien lotsa **estaltzen**. Anjel Lertxundi

Beharbada, donariak kentzeko arrazoia on publikoa izan balitz, inork ez zukeen ezer esango; baina ordena erakutsi, eta ustelkeria ez zen **estaltzen**; fiskoaren eskubidea aldarrikatu, eta fiskoaren ondasunak eskubeteka eta gogara ematen ziren. Iñaki Iñurrieta

Beti urduri, beti beldur, arreka nabil eta urratsen aztarna birjinak elez **estaltzen** ditut. Piarres Aintziart

Ene bada! Lagun kutuna, zenbat edertasun! Utzidazu euretan nahi bezala ibiltzen, utzidazu musuz **estaltzen**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

3 (era burutua izenondo gisa)

Kibitka: zalgurdi **estalia**. Jose Morales

1,96ko jauzia egin zuen iruindarrak, inoiz egin duen onena, bai pista **estalian**, bai kanpoan. Berria - Kirola

Berehala, askotariko jakiak agertu ziren erretiluaren eta botilen inguruan: kabiarra, gazta, esnegorri gazituak, onddoak, eta beste janari batzuk, sukaldetik plater **estalietan** ekarri berriak, estalkitik zehar olio beroaren zirti-zartak entzuten zirela. Jose Morales

Sarritan agertzen zen soroetan, larrain **estalietan**, azao-idortegietan eta errotetan. Jose Morales

Munduko kiroldegi **estali** handiena azaroan zabaldu zuten Qatarko hiriburuan. Berria - Kirola

Munduko Pista **Estaliko** Txapelketak jokatuko dira gaurtik igandera, Budapesten. Berria - Kirola

4,91koa da pista **estaliko** munduko marka eta 5,01ekoa aire librean. Berria - Kirola

Pista **estaliko** emakumezkoen 4x400 txandakako munduko marka ondu du Errusiak. Berria - Kirola

Bere uztar **estalizko** larruz eginikako "Kaska" pausatzen du, gaizoa, izerdi lapatua, gorri beltztua.Gela guztiek zuten isiltasun-itxura bera, moro-tankera samarrekoa, argi **estalizkoa**. Herria

Esaldi zikin- **estalia**, odol- **estalia**, gaitz-estalia: esaldi **estalia**, bere garbitasun aseptiko bihozgabean okaztagarri. Iñaki Segurola

4 (da aditz gisa)

Ileak erauziko dituzu, errautsez **estaliko** zara -erantzun zion bidaztiak-, eta horregatik munduko gorabeherak aldatuko dituzulakoan zaude? Karlos Zabala

5 arra emearen gainean, ernaltzeko, jarri.

Hartara, ziurtatu egin zuen perla zulatu gabea zela, behor **estali gabea**. Patxi Zubizarreta

Orein arretan handienak eta indartsuenak **estaltzen** ditu taldeko eme guztiak, eta, hortaz, aukera gehiago du amaren geneak zabaltzeko. Berria - Gaiak

Ezjakin hutsa zara, behi lodi bat dirudizu eta nazka ematen dit **estaltzen** zaitudanean trikotatzen ariko bazina bezala ikusteak. Ramon Saizarbitoria

Aingeruak erantzun zion: -Espiritu Santua etorriko da zuregana, Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala **estaliko** zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Elizen arteko biblia

Orein arretan handienak eta indartsuenak **estaltzen** ditu taldeko eme guztiak, eta, hortaz, aukera gehiago du amaren geneak zabaltzeko. Berria - Gaiak

Pertsonek eta animaliek badugu antz pixkat; jaten, lotan, bizitzen (bizimoduan?), lanean (lanbidean?), eta beste zera horretan ere bai: haiek "arrak emea gainkatzea edo **estaltzea"** eta horrelako aukera sexualak garatzen dituzte askatasun osoz (hau barregura!), eta guk berriz, jo egiten dugu. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estal dezake (3); **estal ez** (3); **estal ezazu** (3); **estal zezakeen** (4)

ahoa estali (17); **ahoa estali zidan** (3); **ahoa estali zuen** (3); **arazoa estali** (3); **arazoa estali nahi** (3); **artean estali** (3); **aurpegia eskuez estali** (4); **aurpegia estali** (29); **aurpegia estali du** (4); **aurpegia estali eta** (3); **aurpegia estali zuen** (12); **bat estali** (10); **batek estali** (27); **batek estali zituen** (6); **batek estali zuen** (10); **batekin estali** (13); **batekin estali zuen** (3); **batez estali** (38); **batez estali nuen** (3); **batez estali zituen** (3); **batez estali zuen** (8); **begiak estali** (21); **begiak estali eta** (3); **belarriak estali** (11); **belarriak estali behar** (3); **beldurra estali** (3); **beltzak estali** (3); **benetako arazoa estali** (3); **berriro estali** (3); **bezala estali** (7); **bikain estali** (3); **biluzia estali** (3); **burua estali** (22); **burua estali eta** (8); **burua estali zuen** (3); **da estali** (3); **del estali** (3); **dena estali** (3); **dolu jantziz estali** (4); **elurrak estali** (3); **elurrez estali** (3); **erabat estali** (6); **erdia estali** (3); **ere estali** (5); **esku batez estali** (4); **eskuarekin estali** (4); **eskuekin estali** (5); **eskuekin estali zuen** (3); **eskuez estali** (6); **eskuez estali eta** (3); **estali ahal** (3); **estali arte** (9); **estali baitzituen** (4); **estali bat** (8); **estali batean** (5); **estali behar** (20); **estali behar izan** (3); **estali behar izaten** (3); **estali beharko** (6); **estali beharrean** (5); **estali da** (3); **estali dit** (3); **estali ditu** (19); **estali dituen** (4); **estali dituzte** (5); **estali dolu** (3); **estali dolu jantziz** (3); **estali du** (31); **estali duen** (4); **estali dugu** (4); **estali dut** (3); **estali dute** (6); **estali edo** (8); **estali egin** (34); **estali egin da** (3); **estali egin du** (3); **estali egin zituzten** (3); **estali egin zuen** (8); **estali egin zuten** (3); **estali egingo** (4); **estali egiten** (10); **estali egiten du** (5); **estali ere** (5); **estali eta** (79); **estali ez** (5); **estali ez duten** (3); **estali ezin** (4); **estali gabe** (21); **estali gabea** (4); **estali gabeko** (8); **estali genituen** (3); **estali genuen** (3); **estali izan** (6); **estali izan balitu** (3); **estali nahi** (42); **estali nahi balu** (5); **estali nahi izan** (9); **estali nahi izatea** (5); **estali nahian** (14); **estali nahiko** (3); **estali nahirik** (4); **estali ninduen** (5); **estali nuen** (12); **estali ohi** (4); **estali omen** (3); **estali ondoren** (5); **estali zen** (15); **estali zidan** (5); **estali zion** (8); **estali zioten** (4); **estali ziren** (9); **estali zituen** (51); **estali zituzten** (22); **estali zizkidan** (5); **estali zizkidaten** (3); **estali zizkion** (4); **estali zuen** (124); **estali zuen aurpegia** (7); **estali zuen bere** (4); **estali zuen eta** (4); **estali zuenean** (3); **estali zuten** (35); **eta begiak estali** (4); **eta estali** (25); **eta estali egin** (7); **ez estali** (5); **gladys del estali** (3); **gorputza estali** (5); **guztia estali** (5); **guztiak estali** (10); **guztiak estali zituen** (3); **guztiz estali** (3); **harekin estali** (3); **hori estali** (4); **horiek estali** (3); **horrek estali** (3); **hostoz estali** (3); **ilez estali** (3); **jantziz estali** (4); **kapaz estali** (5); **kristalik estali** (3); **latzez estali** (3); **lurra estali** (3); **lurralde osoa estali** (4); **lurrez estali** (8); **lurrez estali eta** (3); **mantaz estali** (3); **mantekin estali** (3); **moisesek aurpegia estali** (3); **nola estali** (5); **oholez estali** (4); **oihal latzez estali** (3); **oihalez estali** (3); **ongi estali** (3); **oraindik kristalik estali** (3); **osoa estali** (13); **osoa estali du** (4); **osoa estali zuen** (5); **paperez estali** (3); **urak estali** (3); **urek estali** (3); **urrez estali** (5); **xaflaz estali** (3); **zapi batez estali** (8); **zapiaz estali** (3); **zauria estali** (4); **zauria estali zuen** (3); **zerbait estali** (3); **zikin estali** (3); **zuloa estali** (7)

atletismoa pista estaliko (4); **aurpegia estalia** (5); **aurpegia estaliko** (4); **batek estalia** (10); **batek estaliak** (3); **batek estaliko** (4); **batekin estalia** (3); **batez estalia** (29); **batez estalia zegoen** (3); **batez estalia zuen** (6); **batez estaliak** (10); **batez estaliko** (3); **beltzez estalia** (5); **buru estalia** (3); **da pista estaliko** (5); **den pista estaliko** (5); **elurrez estalia** (5); **elurrez estaliak** (3); **erdi estalia** (6); **erregina buru estalia** (3); **espainiako pista estaliko** (4); **estalia da** (3); **estalia den** (3); **estalia du** (4); **estalia egon** (3); **estalia eta** (14); **estalia izan** (3); **estalia zegoen** (20); **estalia zen** (9); **estalia zeukan** (3); **estalia zuela** (4); **estalia zuen** (20); **estalia zuten** (4); **estaliak dira** (5); **estaliak eta** (7); **estaliak zeuden** (11); **estaliak zirela** (3); **estaliak ziren** (3); **estaliak zituen** (5); **estaliak zituena** (3); **estaliaren ondoan** (3); **estalien estiloa** (3); **estalien estiloa miresten** (3); **estaliko denboraldia** (3); **estaliko diote** (3); **estaliko du** (12); **estaliko duen** (4); **estaliko dute** (8); **estaliko duzu** (3); **estaliko errekorra** (3); **estaliko espainiako** (5); **estaliko europako** (3); **estaliko munduko** (28); **estaliko munduko txapelketa** (10); **estaliko munduko txapelketan** (9); **estaliko sasoia** (3); **estaliko txapelketak** (3); **estaliko txapelketan** (5); **estaliko txapelketetan** (5); **estaliko zaitu** (3); **estaliko zuen** (8); **eta estaliko** (3); **ezpeletako merkatu estalian** (5); **geruza batez estalia** (4); **goi estalia** (4); **goi estalia zegoen** (3); **gri griz estalien** (3); **griz estalien** (3); **griz estalien estiloa** (3); **hautsez estalia** (5); **ilunez estaliak** (3); **lastoz estalia** (3); **lurrez estaliko** (3); **merkatu estalian** (15); **merkatu estaliaren** (4); **moskuko pista estaliko** (5); **munduko pista estaliko** (13); **noiz estaliko** (3); **odolez estalia** (5); **pista estalian** (19); **pista estaliko** (81); **pista estaliko denboraldia** (3); **pista estaliko errekorra** (3); **pista estaliko espainiako** (5); **pista estaliko europako** (3); **pista estaliko munduko** (28); **pista estaliko sasoia** (3); **pista estaliko txapelketak** (3); **pista estaliko txapelketan** (5); **pista estaliko txapelketetan** (5); **tenisgune estalian** (6); **urrez estaliak** (3); **zapi batez estalia** (3); **zegoen estalia** (3); **zen pista estaliko** (3); **zuriz estalia** (5)

aurpegia estalirik (5); **bat estalirik** (3); **batez estalirik** (12); **batez estaliriko** (6); **begiak estalirik** (6); **burua estalirik** (8); **dolu jantziz estalirik** (3); **erdi estalirik** (5); **erdi estaliriko** (3); **estalirik dagoen** (4); **estalirik eta** (7); **estalirik zegoen** (11); **estalirik zen** (3); **estalirik zeuden** (11); **estaliriko mahaiaren** (3); **estaliriko zurezko** (4); **eta estalirik** (3); **eta zilarrez estaliriko** (5); **hautsez estalirik** (6); **jantziz estalirik** (3); **zapi batez estalirik** (3); **zilarrez estaliriko** (5); **zilarrez estaliriko zurezko** (3); **zuriz estalirik** (6)

ahoa estaliz (4); **aurpegia estalita** (10); **aurpegia estalita zuen** (3); **aurpegia estalitako** (4); **aurpegia estaliz** (6); **aurpegiak estalita** (8); **aurpegiak estalita zituzten** (3); **batek estalita** (3); **batekin estalita** (3); **batekin estalitako** (3); **batez estalita** (31); **batez estalita zegoen** (4); **batez estalita zeuden** (3); **batez estalitako** (12); **batez estaliz** (4); **begiak estalita** (18); **begiak estaliz** (3); **belarriak eskuekin estaliz** (3); **beltzez estalita** (6); **burua estalita** (28); **burua estalita zeramaten** (3); **burua estalita zutela** (3); **burua estalita zuten** (6); **burua estaliz** (3); **elurrez estalita** (6); **elurrez estalitako** (4); **erabat estalita** (5); **erdi estalita** (4); **eskuekin estaliz** (7); **eskuez estalita** (3); **estalita agertu** (3); **estalita dago** (6); **estalita dagoen** (3); **estalita daude** (7); **estalita dauden** (5); **estalita eduki** (3); **estalita egon** (4); **estalita egongo** (3); **estalita egoten** (3); **estalita ere** (3); **estalita eta** (19); **estalita geratu** (4); **estalita gorde** (3); **estalita zegoela** (3); **estalita zegoen** (21); **estalita zeramaten** (5); **estalita zeuden** (20); **estalita zeukan** (3); **estalita zituen** (5); **estalita zituzten** (6); **estalita zuen** (7); **estalita zutela** (3); **estalita zuten** (8); **estalitako emakumeak** (3); **estalitako mahai** (5); **estaliz eta** (7); **estaliz gero** (5); **eta zerua estalita** (3); **geruza batez estalita** (3); **goroldioz estalitako** (4); **gorriz estalita** (3); **guztiz estalita** (3); **hautsez estalitako** (4); **ilunez estalitako** (3); **lainoak estalita** (3); **lainoz estalita** (3); **lorez estalita** (3); **merkatu estalitik** (4); **ondo estalita** (5); **plastikoz estalita** (3); **zaharrez estalita** (3); **zapi batez estalita** (3); **zapiz estalita** (3); **zerua estalita** (4); **zerua estalita zegoen** (3); **zuriz estalita** (4); **zuriz estalitako** (5)

aldarea estaltzeko (3); **arazoak estaltzeko** (5); **aurpegia estaltzeko** (5); **bat estaltzeko** (4); **batekin estaltzea** (4); **batzuk estaltzeko** (3); **batzuk estaltzeko erabili** (3); **belarriak estaltzeko** (3); **burua estaltzeko** (9); **defizita estaltzeko** (3); **dena estaltzeko** (3); **estaltzea da** (5); **estaltzea eta** (3); **estaltzea lortzen** (3); **estaltzeko adina** (5); **estaltzeko asmoa** (3); **estaltzeko behar** (3); **estaltzeko erabili** (11); **estaltzeko erabiltzen** (11); **estaltzeko eta** (8); **estaltzeko fitxatu** (3); **estaltzeko helburuarekin** (3); **estaltzeko oihal** (3); **eta estaltzea** (6); **eza estaltzeko** (5); **gastuen estaltzeko** (6); **gorputza estaltzeko** (3); **haiek estaltzeko** (3); **hori estaltzeko** (13); **hura estaltzeko** (6); **hutsune hori estaltzeko** (3); **hutsunea estaltzeko** (5); **hutsuneak estaltzeko** (5); **zuloa estaltzeko** (5); **zuloak estaltzeko** (5)

ahoa estaltzen (5); **aldea estaltzen** (3); **aurpegi erdia estaltzen** (4); **aurpegia estaltzen** (19); **aurpegia estaltzen dion** (3); **aurpegia estaltzen zion** (6); **bat estaltzen** (14); **batek estaltzen** (50); **batek estaltzen ditu** (3); **batek estaltzen du** (6); **batek estaltzen zion** (7); **batek estaltzen zituen** (4); **batek estaltzen zuen** (19); **batekin estaltzen** (7); **batez estaltzen** (32); **batez estaltzen ari** (3); **batez estaltzen zuen** (9); **begiak estaltzen** (15); **begiak estaltzen zizkion** (5); **belarriak estaltzen** (7); **bestea estaltzen** (3); **bezala estaltzen** (4); **burua estaltzen** (12); **dena estaltzen** (13); **dena estaltzen zuen** (3); **doi doi estaltzen** (3); **doi estaltzen** (3); **eguzkia estaltzen** (4); **elurrak estaltzen** (3); **erabat estaltzen** (11); **erdi estaltzen** (3); **erdia estaltzen** (6); **erdizka estaltzen** (6); **ere estaltzen** (4); **eskuekin estaltzen** (3); **estaltzen ahal** (3); **estaltzen ari** (15); **estaltzen ari zen** (5); **estaltzen aritu** (3); **estaltzen badu** (4); **estaltzen baitzuen** (5); **estaltzen da** (4); **estaltzen dio** (3); **estaltzen dion** (7); **estaltzen dira** (4); **estaltzen diren** (3); **estaltzen ditu** (28); **estaltzen dituela** (3); **estaltzen dituen** (12); **estaltzen dituena** (4); **estaltzen ditut** (3); **estaltzen dituzte** (11); **estaltzen dituzten** (9); **estaltzen du** (36); **estaltzen duela** (3); **estaltzen duen** (46); **estaltzen duen kortinaz** (3); **estaltzen duena** (12); **estaltzen dute** (27); **estaltzen dutela** (3); **estaltzen duten** (11); **estaltzen eta** (11); **estaltzen ez** (11); **estaltzen hasi** (3); **estaltzen ibili** (3); **estaltzen joan** (3); **estaltzen laguntzeko** (3); **estaltzen nituen** (3); **estaltzen saiatu** (10); **estaltzen saiatu zen** (3); **estaltzen saiatzen** (6); **estaltzen zen** (5); **estaltzen ziola** (4); **estaltzen zion** (33); **estaltzen zioten** (12); **estaltzen zituela** (5); **estaltzen zituen** (39); **estaltzen zituen eta** (3); **estaltzen zituzten** (25); **estaltzen zizkidan** (3); **estaltzen zizkiola** (3); **estaltzen zizkion** (12); **estaltzen zuela** (8); **estaltzen zuen** (135); **estaltzen zuen aurpegia** (3); **estaltzen zuen lurra** (4); **estaltzen zuena** (8); **estaltzen zuten** (43); **estaltzen zuten eta** (3); **eta aurpegia estaltzen** (4); **eta estaltzen** (13); **eta gibela estaltzen** (9); **eta hura estaltzen** (3); **etxea estaltzen** (4); **etxea estaltzen zuten** (3); **geruza batek estaltzen** (4); **gibela estaltzen** (10); **gibela estaltzen duena** (6); **gibela estaltzen zuena** (3); **glandea estaltzen** (4); **glandea estaltzen duen** (4); **gorputz osoa estaltzen** (4); **gorputza estaltzen** (6); **guziak estaltzen** (3); **guztia estaltzen** (3); **guztiz estaltzen** (3); **haiek estaltzen** (3); **hautsak estaltzen** (3); **hori estaltzen** (3); **hormak estaltzen** (4); **hormak estaltzen zituzten** (3); **hura estaltzen** (9); **hura estaltzen zuen** (3); **itun kutxa estaltzen** (4); **kareorez estaltzen** (4); **kutxa estaltzen** (4); **kutxa estaltzen duen** (3); **lainoak estaltzen** (6); **lau hormak estaltzen** (3); **lurra estaltzen** (5); **lurrez estaltzen** (3); **ondo estaltzen** (4); **osoa estaltzen** (13); **osoa estaltzen dute** (3); **osoa estaltzen zioten** (3); **osorik estaltzen** (8); **ozta estaltzen** (4); **ozta ozta estaltzen** (4); **paretak estaltzen** (6); **paretak estaltzen zituzten** (3); **zapi batez estaltzen** (3)

---

estaligabe *(orobat **estali gabe**)* *izond* estalia ez dena; estalkirik ez duena.

Drojki: bi gurpileko zaldi-kotxe arina, baleztaduna eta **estali gabea**. Jose Morales

Gero, bagoi **estaligabetan** kargaturik, gatibualdi berri baterantz eraman zituzten, Buchenwald-era eta Mauthausen-era. zeren eta longaina higatua, zeinaren botoi **estaligabeetan** islatzen baitzen kandelen argia, lepoa gora jasota baitzeukan. Juan Garzia

Gizakiek beren pentsamenduaren aitorpena bidezki era irekian eta **estaligabean** azaltzeko askoz oztopo gutxiago baitute. Ibon Uribarri

2 (izen gisa)

1950 eta 1960etako **estaligabe** handiak gustatzen zitzaizkion bereziki Stepheni. Xabier Olarra

3 abereez mintzatuz, estalia izan ez dena.

Hartara, ziurtatu egin zuen perla zulatu gabea zela, behor **estali gabea**. Patxi Zubizarreta

---

estalinismo *iz* Jose Stalinek eraturiko sistema politikoa.

Estalinismoak ezarritako estatu-erlijioak horrelako zerbait ekar zezakeela -eta, sasi-propagandaren mozorroak mozorro, ordurako jada ekarri zuela- iruditzen zitzaion. Fernando Morillo

Sorgin-ehiza, **estalinismoa** ... Errazegia zen perspektiba galtzea, hamaika sare kimerikotan erortzea. Fernando Morillo

1956an, zuen gaixotasuna zela eta, eta **estalinismoaren** politika kulturala kritikatu zuelako, publikatzeari utzi zio. Berria - Kultura

Estalinismoaren krimenak ezagutzeak, 1956ko Hungariako gertaerek, Joan XXIII.a hil ondoren Eliza katolikoak hartu zuen bideak nahigabe saminak eta desilusio mingotsak izan ziren beti ere gizonarengan fedea galdu ezin zuen Pasolinirentzat. Josu Zabaleta

Estalinismoaren ordezkariak zirelako, gorriak, azken batean. Berria - Mundua

Garrantzizkoa da krisiaren kontzientzia hori guztiz arrunta zela ohartzea, oso jeneraldua zegoela, ezkerreko muturrean zein eskuinekoan (eskuin-ezkerrok forma guztiz erradikalak hartuko dituzte hain zuen horregatixe: faxismoraino eta **estalinismoraino**) mende hasieratik eta Lehen Mundu-Gerraren inguruan batez ere. Joxe Azurmendi

---

estalinista *izond* Jose Stalin sobietar buruzagiari eta haren sistema politikoari dagokiona.

1945 eta hurrengoak: diktadura **estalinista**, errusifikazio politika eta lehenago 1939-1940: jendetzak Siberiara erbesteratuak. fobia guztiek bezala izango ditu horrek ere bere arrazoiak, eta ez naiz ni erregimen **estalinistak** defenditzen hasiko. Edorta Jimenez

«Varsoviako gettoan edo gulag **estalinista** batean egindako bozak izan dira», esan zuen Aslan Maskhadov presidente independentistaren eledun Akhmed Zakaievek. Berria - Mundua

Bizi nahi ez dudan etxea iragartzen dut izeneko obran (1965), propaganda **estalinista** gogor kritikatu zuen. Fernando Rey

Estalinista zela Llabrés eta osoki aldatu dela ezkerretik eskuinera joanez. Herria

Letrak kontsideratzeko ikusmodu **estalinista** apezkoi hori izan da, euskal letretan gailendu den bakarra. Patziku Perurena

Errusian, **estalinista** egin zen berehala. Koro Navarro

Izen piloa etorri zitzaidan akordura segituan, idazle andana ezin hunkiberago, ezin gizatiarragoena: faxistak, **estalinistak**, naziak, salatzaileak, tiranoak... Karlos Linazasoro

---

estalixe *izond* estali samarra.

Beheraxeago beti, gizonak lurrean utzitako arrastoren baten inguruan: alor buruko ezpondan, borda inguruko soroan, burniolen atari zahar goroldioak **estalixean**, baserri erorien aldameneko belasoetan... Patziku Perurena

---

estalkeria *izlag* estaltze gaitzesgarria.

Abortu eta **estalkeriazko** negozio horietan berebiziko ausardia zuen. Josu Zabaleta

---

estalketa *iz* estaltzea.

Honen aurrean ezin daiteke ezein itxura sofista faltsu atxiki, baizik honek berehala salatu behar du bere burua, bere **estalketaren** oinarria edozein izanda ere. Inferentzia zuzenen (*consequentiae inmediatae*) estalketaren bitartez. Ibon Uribarri

estalki *(orobat **estalgi**)* 1 lema estalki Elizen arteko *iz* estaltzen duen gauza.

Logelan, ohantze berean 4 izanen gara abiatur kapitain bat, gipuzkoar bat, abertzalea, eta Katalan bat, hauek biak biziki erneak bigarren gauean berean **estalgi** onen jabe eginen gaituzte. Marzel Etxehandi

2 *buru-estalki*

Hamabi ezkutu eta beste hainbeste lantza eta **buru-estalki** ekarri zituen. Juan Kruz Igerabide

Han funanbulu burlati bat burua bularretik burruti eta **buru-estalki** bat zubena, ezin buruturik, builaka hasi da, bultza egiten zion burgoburu baten aurka. Xabier Olarra

Telemako armak zeuden gelara joan zen; lau ezkutu, zortzi lantza, eta lau **buru-estalki** harturik, aitaren albora itzuli zen. Juan Kruz Igerabide

Al-Qaidakosare terroristaren bigarren burua da Ayman Al-Zawahiri Frantziako musulman **buru-estalgi** horren kontrako legeaz mintzatu dena. Herria

Emakumeek mantak eta berokiak **buru-estalki** zituzten, emakumeek sorbaldak erorixe zituzten, hotzagatik bainoago beldurragatik, giza gorputzak kuzkurtzen, txikitzen eta ahultzen dituen sentimendu horregatik, giza arimak loditzen, hanpatzen, kargatzen dituen sentimendu horregatik. Felipe Juaristi

---

estalkidun *izond* estalkia duena.

Baita dozena bat arrautza ere, otar **estalkidun** batean hartuta. Anjel Lertxundi

Azpiak, bai, baina gauza bat dira esandako horiek eta beste bat oso, ohe zuri garbi epel bigun **estalkiduna**. Iñaki Segurola

Atzerago, kutxatila ugari -**estalkidunak** zein estalkigabeak-, gauza laburretarako, bisita-txartelez, hil-mezuz, antzerki-sarrerez eta Txitxikovek oroigarri gisa gordetzen zituen bestelako paperez beterik.· Soina epeltzen hasi zitzaionean, ohe azpitik kalamuzko **estalkidun** ron botila bat atera zuen. Jose Morales

Larruzko **estalkidun** petaka bat zuen orain eskuetan, ez ohartu ni nondik jalgia. Aingeru Epaltza

---

estalkigabe *izond* estalkirik ez duena.

Atzerago, kutxatila ugari -estalkidunak zein **estalkigabeak**-, gauza laburretarako, bisita-txartelez, hil-mezuz, antzerki-sarrerez eta Txitxikovek oroigarri gisa gordetzen zituen bestelako paperez beterik. Jose Morales

---

estalkitxo *iz* estalki txikia.

Manuelek mostradorea atondu zuen tabernan, eta emazteak sukaldean prestatutako pintxoen platerak erreskada egokian jarri, beirazko **estalkitxoa** eta guzti. Unai Iturriaga

---

estalpe 1 *iz* babesleku estalkiduna, eskuarki aterpea.

Udaletxe azpiko jatetxeak **estalpe** bat zeukan atzealdean, kirol zelai bihurtzen ari ziren terrenoetara ematen zuena. Bernardo Atxaga

Estalpe batean jaio eta gurutzean hildako Jesus behartsu hura. Bernardo Atxaga

Zuhaitz adarrez eginiko **estalpe** batzuen babesean. Askoren artean

Karrika zeharkatu eta etxe artean bide egiten duten harkaitzetan eginiko mandioak dira; **estalpe** hauetan badago egur hornidurarik: gaztaina morkotsak bezala lazturiko zuhaitz erroak, itsasontzi zatiak, ontzien armazoiak. Koldo Izagirre

Kutxaren narruzko **estalpearen** josturak koipez babesten. Edorta Jimenez

Bi isuriko estalkia jarri zioten **estalpeari**, eta gailur inklinatu hori lohiarekin igurtziz, euri-ura kanpora botatzen saiatu ziren. Santiago Iruretagoiena

Musika jotzeko oholtza eta **estalpea**, hutsik. Txillardegi

Sarbidea, autoen **estalpea**, eskailera nagusia, leiho handi irtena eta sukaldeko leihoa. Koro Navarro

Hala hasi ziren bilera haietan batzuk arbastekin **estalpeak** egiten, beste batzuk mendi azpian kobazuloak irekitzen. Santiago Iruretagoiena

Badakigu zaharrik hil zela Krates; azkenerako beti ere hantxe leku beretik mugitzeke bizi izan zela, marinelek portuko puskak gordetzen zituzteneko Pireoko biltegi baten **estalpean**. Juan Garzia

Noble nahiz bilau, azken hordia **estalpean** egokiturik utzi arte ez zuen Migel Mailuk oherako bidea hartu. Aingeru Epaltza

Kanpora irten, eta kalesa gordetzen zuten **estalpera** joan ziren biak. Anjel Lertxundi

Egurraren eta tresnen **estalpe** bihurtu zinan Amona Babyk, etorri zenean. Anton Garikano

Kanpora irten zenean egur gehiago ekartzeko **estalpetik**, ez zen ohartu gizonaren oinatz izoztuez. Anton Garikano

Kolegioko artista ofiziala bihurtu zen Eguberriak iritsi eta bere eskuz egindako zurezko tailak ekarri zituenean: Jaiotzarako **estalpe** oso bat bere Haur, Guraso eta abereekin. Bernardo Atxaga

Biharamun goizean beste zenbait gorputzekin batera nirea ere **estalpe** gabeko kamioi baten zoru umelaren gainera bota zuten. Urtzi Urrutikoetxea

Euria ari du gogotik, eta euri tanta lodiek lastozko **estalpea** zigortzen dute. Javi Cillero

Eskuez airean keinu batzuk marraztuz sartu zen xamana kanaberazko **estalpera**. Josetxo Azkona

Denda aurreko banbuzko **estalpeko** hamakan etzanik. Jon Alonso

Zurezko gure **estalpean**, tapakien azpian eta txirbilez beteriko lastairen gainean. Juan Garzia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Une hartan bertan, **estalpe** ustelduen atzean, hantxe zegoen osaba. Koro Navarro

Era beronen erdi-erdian gailen, halako **estalpe** geometriko bat. izan ere, bai baitzegoen zinea: uralitazko teilatudun **estalpe** bat. Txillardegi

Garai hartan, Rioko Galeão aireportua **estalpe** zikin bat besterik ez zenean. Karlos Zabala

Gauetan olanazko **estalpe** erraldoi batean irratia entzuten aritzen ziren soldaduekin biltzen nintzenean. Aritz Gorrotxategi

Naturak matutien otoitzerako deika ari diren kanpai hots isilpetuak jasoko lituzkeen kalostra izuti eta alargundua zirudien, izarren zilar hutsez osaturiko **estalpe** karroindua bakardadearentzat. Pako Aristi

3 irud/hed

Ama hildakoan, sekula sentitu ez nuena sentitu nuen goiz hartan: lurgorrian **estalperik** batere gabe nentzala. Txillardegi

Irudi luke, beste edozein testuingurutan egin litekeen eran, terrorismoaren **estalpean** ongia eta gaizkiaren artean egoeraren moralki ikertzeko eta jujatzeko kapazitatea galtzen dela, Itxaro Borda

4

Ilun baitzegoen **estalpe**-barrua. Anjel Lertxundi

Mendebaldeko ertzeko etxalde zaharra suntsitu eta haren ordez mundrunezko **estalpe** ilarak eraiki zituzten. Agustin Otsoa

Nire argazki bat, bakarrik nago, kanpoan, nire eskuinean **estalpe**-ilarak, zaharrak berriei itsatsita. Joseba Urteaga

5 *estalpeko* *izlag*

Estalpeko kale nagusian sartzera zihoan. Karlos Zabala

Estalpeko kale handietan, ordea, bizitza aurrera zihoan. Karlos Zabala

Atze-atzean, egitura sendoko **estalpe** baten azpian, Balthazar zegoen zain, abiatzeko prest, kabestruan loturiko zaku batetik oloa jaten. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten estalpean (3); **estalpe bat** (3); **estalpe baten** (3); **estalpean sartu** (3); **estalpeko kale** (8); **estalpeko kalean** (4); **estalpeko kalearen** (6); **estalpeko kaleen** (3); **estalpeko kaleetako** (3); **estalperik gabe** (4)

---

estalpetu, estalpe(tu), estalpetzen da/du *ad* estalpe batek babestu.

Justina Díaz, guardasolaz **estalpeturik**, Media Lunatik datorren karrika zuzenetik zetorren. Juan Garzia

Estalpetua nuen neure burua, almenetako aldamioetan egun erdia euripean alferrik egin eta gero. Aingeru Epaltza

---

estalpetxo *iz* estalpe txikia.

Aita Gandarias, Erriberriko guardiano izendatu zuten hurrena: banago hango meteorologiako **estalpetxo** txikia, gerora bertan ezagutuko genuena berak ipini zuela. Pello Zabala

---

estaltzaile *iz*

Delituaren **estaltzaile** izateaz akusatutakoen artean Javier Otano Nafarroko presidente ohi sozialista ere bazegoen. Berria - Euskal Herria

Ustez eroskeriaren **estaltzaile** izan ziren sei akusatuak prozeduratik kanpo uzteko eskatu du. Berria - Euskal Herria

Juriskontsultuak harantzago iritsi dira: **estaltzailea** lapurra baino gorrotagarriagotzat jo dute. Iñaki Iñurrieta

Greziarren eta erromatarren artean, lapurrari diru-zigorra ezartzen ziotenez, zigor berbera ezarri beharra zegoen **estaltzaileari**. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

delituaren estaltzaile (5); **delituaren estaltzaile izan** (3); **eroskeria delituaren estaltzaile** (4); **estaltzaile izan** (4); **estaltzaile izan ziren** (4)

---

estaltze 1 *iz* zerbait zerbaiten bidez ageritik edo bistatik kentzea.

Filmeko irudiaren bat-bateko agerpen hori ahaztu egiten dela proiekzioan, aurkezten diren gauzen pertzepzioaren mesedetan, egiazko "pantaila-efektuarekin" konpara daitekeen modu batean azaltzen baitzaizkigu gauza horiek, **estaltze** eta desestaltze progresiboen bidez. Josu Zabaleta

Itzalguneen **estaltze** egitarauak aintzina jarraitzen du. Orain berriketa hutsean ari da, **estaltze**-lanean. Herria

Nahi zuen guk azaltzea ea gauez entzuten genituen gurasoak **estaltze** lanean, eta zer hots eta hitz entzuten genituen. Pello Lizarralde

Hilabetean 548 euro baino gehiago irabazten dutenek ez dute CMU edo Eritasunen **estaltze** unibertsalaren eskubiderik. Berria - Euskal Herria

Gobernuak esku-hartze auzietan izan duen jarrera, batez ere Finucaneren auzian, etengabeko ukatze, ezkutatze eta **estaltze** saioa izan da. Berria - Mundua

2 arra emearen gainean, ernaltzeko, jartzea.

Jarduera homosexual asko ikusi izan dira -laztanak, bata bestea masturbatzea eta estaltzea- jarduera eta **estaltze** heterosexualak gertatu baino pixka bat lehenago eta geroago. Luis Elberdin

Koito jarreretan ere gertatu ziren berrikuntzak; hala, ugaztunen **estaltze** jarreratik harantzago joanez, aurrez aurre ere egiten dute. Luis Elberdin

Lehenik kostaldera joan zen, han topatzen baitira andreak sosa pagatzeko prest daudenak Alan Ladd bezalako morroi baten **estaltze** bat jasotze aldera. Pello Lizarralde

---

estamental *izond* estamentuetan banatua, estamentuen araberakoa.

Horrela, bada, gizabanakotzearen bide modernoa irekitzearekin batera Erdi Aroko gizarte **estamental** eta mailakatuari zegokion ikasleria, eta ildo horretatik gizakia bera ulertzeko eredua hautsi zuen. Askoren artean

Laster konturatu nintzen ez zela halakorik, irakaskuntak banaketa **estamental** batean duela bere funtsa, zu hor eta ni hemen, aulki bigungarriduna lapurtuta ere. Xabier Mendiguren Elizegi

---

estamentu *iz* funtzio sozial edo bizi estilo batek ezaugarritzen duen gizarte maila.

Estamentuz osatutako sistema sozialean, herriko jende xeheak gizarte mailan igotzeko zuen aukera ia bakarra Elizako erakundeen babesera biltzea zen. Askoren artean

Hiru zati edo **estamentuk** osatzen dizu hiria: langileriak, herrizaingoak eta buruzagigoak. Joxe Azurmendi

Gure izenak, OK Expressoko idazleonak, hamaika aldiz igorri izan zaizkie diren eta ez diren **estamentu** guztiei. Edorta Jimenez

Zeren eta, edozein harremanetarako, eta **estamentu** sozialean aitzina egiteko edo gailurrari eusteko, funtsezkoa baitzen iduri kanpo-eder baten izaitea. Joan Mari Irigoien

Ez dut ezagutzen, hitzaren tratuari dagokionez, gaurko futbolariena baino **estamentu** kontserbadoreagorik. Joan Mari Irigoien

Nik argi neukan, egin nituen irakurketekin, eta abar, eliza eta estatua **estamentu** guztiz hertsatzaileak zirela. Ana Urkiza

Frantziskok bide propioa nahi du urratu, eta molde ezagunak ez ditu lagungarri ikusten bere sakoneko intuizioa gauzatzeko (ez da **estamentu** erlijiosoetan sartuko, ez kleriko, ez monje, ezta ermitau bezala ere). Askoren artean

Hirugarren **estamentuaren**, hots herri xumearen ordezkatzeko gizonik egokiena. Elena Touyarou

---

estamin *iz*

Wilkes kapitainak kontatu digunez, bada han **estaminet** bat; pub antzeko kafe-etxetxo bat dela dio. Mirentxu Larrañaga

Ahalegindu naiz burua argi izaten eta Pop herrixkako **estamineteko** neska irudikatzenBiharamunean entrenamendu-esparruan aritzekoak ginen, baina handik itzuli orduko, Popera joango nintzen zuzenean, **estaminetera**, eta neskak arrautzak eta patata frijituak ekarritakoan ausart jokatuko nuen... zer izen zuen galdetuko nion. Mirentxu Larrañaga

Ozen jo behar izan nuen, inork entzungo bazuen, **estaminetetik** zetorren zalaparta zela-eta. Mirentxu Larrañaga

---

estamu ik **estomago**.

---

estancia ik **estantzia**.

estandar *(orobat **estandard** g.er. eta **estandare** g.er.)* **1** *izond* eredu gisa balio duena edo erreferentzia puntu gisa erabiltzen dena.

Denbora, distantzia, luzera, bolumen, pisu eta balioaren neurri **estandarrak** gizarte-bizitzako premiak dira edozein mailatan, maila primitibotik gora. Iñaki Mendiguren

Kuhnek ikusmolde **estandarraren** oinarrizko epistemologia jartzen du auzitan: ez dago zimentarri unibertsal, abstraktu, denboraz kanpokorik, gizakien ezagutza-gogoak baliotzeko. Askoren artean

Ekonomia **estandarrak** merkatuan elkartrukatzen diren ondasunen azterketara jotzen du batik bat, hau da, truke-balio bat, moneta balio bat duten ondasunetara. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kontzeptu zientifikoari dagokionez, Zientziaren Filosofia **estandarrak** kontzeptuen tipologia desberdinak ezartzen ditu, euren alde onak eta txarrak ebaluatuz. Askoren artean

Bidezkoa eta zentzuzkoa da nazio bateko hiztun guztiek entzun edo irakurri beharreko jardunetan eredu **estandarra** baliatzea. Koldo Zuazo

Apeta hutsez hartatik urrundu gabe ere, ez naiz ibili hemen beti, prezisamentean, euskara batu **estandar** zuzen egoki dotoreenaren arrastotik. Juan Garzia

Hizkera **estandar** jasoaz gainera, beste hizkera batzuk ere bazirela onartu zen horrenbestez. Koldo Zuazo

Hizkera **estandarrak** Hegoaldeko eta Iparraldeko euskaldunak batzeko balio behar zuela zioen. Koldo Zuazo

Emakume edadetua zen, edadetu **estandarra**, eta lore urdinak zituen soinekoan. Unai Elorriaga

Bertsio **estandarraren** arabera, ezagutzak honako hiru baldintza hauek bete behar ditu: (1) ustearen baldintza, (2) egiaren baldintza, eta (3) justifikazioaren baldintza. Askoren artean

Diziplina finkatzeaz gain, ikusmolde jakin bat ere ezarri zuen, ezarri: ikusmolde **estandarra** deritzana (*Standard View, Received View*). Askoren artean

Tarifa finko **estandarra** eta gaueko beherapena. Aingeru Epaltza

Teoria honek ekarpen garrantzitsua egin zion Eredu **Estandarrari**, hau da, indar elektromagnetikoarekin, indar ahularekin eta indar azkarrarekin loturiko fisika guztia azaltzen duen teoriari. Berria - Gaiak

Gaur egun gehien erabiltzen diren kontainerrek neurri **estandarrak** dituzte, eta mundu zabalean ederki bidaiatzen dute. Berria - Gaiak

2 (izen gisa)

Lan-baldintzen kode edo **estandarrei** buruzko proposamenen benetako gabeziak aztertu nahi izanez gero, ekimenen benetako helburu eta edukia aztertzea ezinbestekoa da. Iñaki Heras

Erakunde horrek nazioartean arauak edo **estandarrak** sortzen ditu, ez nahitaez bete beharreko arauak, baizik eta borondatezkoak. Iñaki Heras

Ohikoa izan dela indukziozko arrazoinamenduak dedukziozko arrazoinamenduaren **estandarrak** asetzeko eskatzea, baina hori egitean oker gabiltza. Askoren artean

Kursaaleko emanaldia jazz musikaren **estandarretan** oinarrituko du seikoteak, baina Salvadorren beraren piezak eta euskal herri kantuak ere joko ditu. Berria - Kultura

Londresen proposamena nazioarteko giza eskubideen **estandarrekin** ez zetorrela bat adierazi zuen. Berria - Mundua

Aurkezpen on batek, normalki, lan on bat esan nahi du, ikasleak akademiako **estandarrak** dominatzen dituen seinale baita. Askoren artean

Edo jazzaren beste **estandarretan** sartzen dituen aire flamenkoak, buleriak, tangoak, etab. Berria - Kultura

Horren beharra ere bazen, sarritan euskalkiek **estandarrari** egin beharreko emaitzaren erakusgarri, hitz zerrenda hutsak baizik aurkezten ez direlako. Koldo Zuazo

Triestearrek italieraz jarduterakoan egiten dutena da, dialektoarekin eta **estandarrarekin** egindako tex-mex halako bat. Berria - Kultura

Lapurreta, debeku eta bazterketa antidemokratiko honi Txabarri jaunak eta Ereño andreak **estandar** demokratikoaren labela eman nahi izan diotela. Berria - Euskal Herria

Ikastolak Europako eta munduko kalitateko **estandarrik** garatuenen parean daudela azpimarratu zuen. Berria - Euskal Herria

Giza Eskubideetarako Helsinkiko Nazioarteko Federazioak nazioarteko **estandarren** urraketa ugari salatu zituen atzo. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan)

Indukzioak eta dedukzioak bakoitzak bere zuzentasun- eta zentzuzkotasun-**estandar** propioak dituelako. Askoren artean

4 ohikoa; arrunta.

Betiko talde **estandarretik** aterata, saiatzen gara programak egokitzen. Berria - Euskal Herria

33 urte bete behar izan zituen jazz **estandarretik** aldendu eta gitarrarekin bide berriak, askeak eta inolako arau formali lotu gabeak, jorratzeko zirrikitu bat aurkitzeko. Berria - Kultura

Baina arno **estandarrak** egiten hasten badira denak, berezitasunak desagertzen badira, nortasuna galtzeko arriskua dago, ezta? Berria - Harian

Betiko talde **estandarretik** aterata, saiatzen gara programak egokitzen. Berria - Euskal Herria

Potilikari **estandarrei**, Baluarte edo Legebiltzarreko moketa besterik zapaltzen ez duten horiei. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da hizkera estandarra (3); **eredu estandarra** (4); **estandar bat** (5); **estandar edo** (3); **estandarra eta** (6); **estandarrak eta** (3); **estandarraren arabera** (4); **estandarretan sartzen** (3); **eta estandarra** (3); **euskara estandarrean** (3); **filosofia estandarraren** (3); **hizkera estandarra** (14); **hizkera estandarra eta** (3); **hizkera estandarrak** (4); **ikusmolde estandarraren** (8); **ikusmolde estandarrean** (3); **nazioarteko estandarrak** (5); **neurri estandarrak** (4)

---

estandard ik **estandar**.

---

estandardizatu ik **estandarizatu**.

---

estandare ik **estandar**.

---

estandarizatu, estandariza(tu), estandarizatzen *(orobat **estandardizatu** g.er.)* **1** du *ad* estandar bihurtu.

Bada garaia pilotak fisikaren arabera **estandarizatzeko** XXI. mendean. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo gisa)

Linux-i esker, sistema **estandarizatua** lortu dute, salbuespena izateari utzi diote. Berria - Gaiak

Merkatu egonkor horiei loturik, produktuen ekoizpen homogeneoa eta **estandarizatua**, inolako malgutasunik eta aldakortasunik gabea. Iñaki Heras

Giro, antolamendu, elikagai, saltsa eta edari amerikar masifikatu **estandarizatu** inpertsonalak. Edorta Agirre

Denok dugu, zeharbidez lehenago ere esan dugun bezala, adierazgarritasunari buruz halako "berezko" kontzeptu bat, gutxi-asko **estandardizatua**, teoria subjektiboaren eta teoria formalaren halako nahaste moduko bat. Josu Zabaleta

---

estandarizazio *iz* estandarizatzea.

Sistema biologikoak erreproduzitzeaz gain, Biologia Sintetikoak **estandarizazioa** ere bilatzen du. Berria - Gaiak

Sistema biologikoak erreproduzitzeaz gain, Biologia Sintetikoak **estandarizazioa** ere bilatzen du. Berria - Gaiak

Karaktere sinikoen **estandarizazioari** aurrea hartu ziona estatu unibertsal minoikoaren sortzaile ezezaguna izan zen agian. Iñaki Mendiguren

Ez dakit zorioneko **estandarizazioari** zer eginen dion hautu honek, baina kalte egiten badio ere hizkuntzaren onerako izanen da. Janbattitt Dirassar

Legearen pixkanakako **estandarizazioaz** gutxi gorabeherako uniformetasuna lortu zen estatu unibertsaletan beste etapa bat ere izan zen batzuetan, eta hor lege inperial batua kodetu zuten agintari inperialek. Iñaki Mendiguren

Produktuaren diferentziazio handiagoa versus **estandarizazioa** : merkatuak dinamikoagoak eta aldakorragoak direnez, merkatu osoa osatzen duten segmentuei produkzioa hobeto egokitu ahal izateko, produktua desberdintzea da helburu nagusia. Iñaki Heras

Estandarizazioa , homogeneizazioa. Edorta Agirre

Euskal Herriko trikitia orokorrean **estandarizazio** prozesu batean sartu da, eta Gipuzkoan duten jotzeko modua nagusitu egin da. Berria - Kultura

Hizkuntza filosofikoa euskaraz **estandarizazio** -bidean dago eta, gaur egun, horri buruzko eztabaidak etengabe ematen dira gure artean. Askoren artean

---

estandarte 1 *iz* gudari talde baten edo zenbait bazkunen ikurra edo bandera.

Estandarte eta bandera esekiek babesten zituzten terrazak, eta haien oinetan emirraren zaindari bereziak zebiltzan batetik bestera, sable bikoitz gakotua aldean, labana gerrikoan, hamar oineko lantza eskuan. Karlos Zabala

Bandera karratuak ziren, horiak, urdinak, berdeak, beltzak; hogei sekzioen **estandarteak** zirela ohartu zen Lisa. Karlos Zabala

Florentek buruzagien eta tenienteen bereizgarriak marraztu zituen, bai eta konpainien **estandarteak** ere. Karlos Zabala

Herriko parrokiako **estandartea** zen. Edurne Elizondo

Beldurragatik -hala dio Montaignek- **estandarte** zuriak gorritzat hartzen dira; beldurragatik bizia kentzen da, bizia galtzen da. Bernardo Atxaga

Charles erregeak alde egin zuen Londrestik 1642. urteko abuztuaren 22an, Nottinghamgo errege-**estandartea** harturik. J.M. Olaizola "Txiliku"

2 irud/hed

Nola hurbildu aita jesuitaganat, baldin osaba Joanikotek ezin ikusi bazuen, eta baldin, hark bezalaxe, nik ere zientzia eta libertatea banituen, artean, neure **estandarte** eta bandera. Joan Mari Irigoien

Birjintasun ukigabearen eta pobretasun txit santuaren **estandartez** distiratsu apaindua. Askoren artean

Luxuria jabetu zen nitaz eta inguratu egin ninduen bere traiziozko itzal mugikorrez, bere moralik gabeko **estandarteez** , libertinajeari lotzeko deia zen hura. Karlos Zabala

---

estandartedun *iz* estandartea daraman pertsona.

Ama Birjinaren **estandarteduna** izan zen luzaro, Saint-Leun. Karlos Zabala

---

estandartu, estandar(tu), estandartzen du *ad* estandar bihurtu.

Euskalki orotako hiztunek mailegu berri horiek palatalaz ahoskatzen dituztela islatu eta **estandartzeko** nahia bada arauaren zioa, ez da ulertzen zergatik ez den diptongodun kasuetara ere zabaldu. Lourdes Oñederra

---

estandartze *iz* estandar bihurtzea.

Orain, ahozko euskararen **estandartzearen** erantzule diren hizkuntzalari, teknikari eta irakasleak fonetikan janztea mesedegarri litzateke. Lourdes Oñederra

Esango nuke oraingo euskaran **estandartzearen** berritasunak, elebitasunaren orokortzeak eta lurralde batzuetako ofizialtasunak maileguen indarra hauspotu dezaketen eragile direla. Lourdes Oñederra

Jakina da, bestalde, **estandartzearen** modu eta berritasunagatik, Batuaren idazkeratik ekin diogula ahoskerari eta ez alderantziz. Lourdes Oñederra

---

estandin ik **standing**.

---

estanding *(corpusean **standing** eta **estandin** soilik)* *iz* gizarte maila altuari dagokion itxura.

Eskerrak garagardoa edaten ari zela, kopak izan balira kategoria handiko klub hartara (**"standing"** handikoa omen) iritsi zenerako ez baitzen zuzen sartzeko gauza izango, eta are gutxiago begi zoliz eta errezelorik jaso gabe jarduteko. Migel Angel Mintegi

Arratsaldean, Chanel eta bisoizko emakume handikiak, bere erosketetan atsedentxo bat eginez, kafea xigorkiekin edo txokolatea txurro egin berriekin hartzera; eta gauak aurrera egin ahala, **"estandin"** altuko ejekutiboak beren whiskyak jotzera eta beren negozioak burutzera. Juan Martin Elexpuru

---

estanflazio *iz* atzeraldi ekonomikoko egoera, inflazioaren eta langabeziaren gorakada dakarrena.

Estanflazioa esan zitzaion ekonomia moteltzea eta inflazioa bateratzen zituen egoera horri. Iñaki Heras

Estanflazioak , izan ere, koiunturazko politikaren usadiozko egitura desegin zuen, politika hori, hein handi batean, Phillipsen kurbak deskribaturiko inflazioaren eta langabeziaren arteko arbitrajean oinarritzen baitzen. Koro Navarro

Estanflazioaren agerpenak pentsamolde neoklasikoa itzularazi zuen (monetarismoz mozorroturik); haren ondorioak oso argiak izan ziren 1980ko hamarraldian. Koro Navarro

---

estankaldi *iz* estankatze aldia.

Paraleloki, enpresaren merkatuak **estankaldi** bat ezagutzen du, sail komertzialeko langile franko ba da berrikitan joanik. Herria

---

estankatu, estanka(tu), estankatzen da/du *ad* prozesu eta kidekoez mintzatuz, haren aurrerabidea gelditu.

Une honetan bizitzen ari naizen garaia oso gustuko dut eta ez nuke nahi aro batean **estankatuta** geratu. Berria - Kultura

Museoko ondarea **«estankatua** » dagoela dio, eta erosketak ez daudela «jokabide sistematiko batean» integratuak. Berria - Kultura

Bazirudien urak oroitzapenak azaleratu eta nabigatzen jartzen zituela, ordura arte lehorrean **estankaturik** egonak, eta beren gorputzei arinaldi fisiko antzeko bat ematen ziela. Anton Garikano

---

estankero *iz* estanko bat kudeatzen duen pertsona.

Gipuzkoako **Estankeroen** Elkarteko presidenteak. Berria - Harian

---

estanko[1] *(orobat **estanku** g.er.) iz* tabakoa, zigiluak eta kidekoak estatuaren kontzesio bidez saltzen diren denda.

Lehenengoa **estanko** batean izan zen, eta nagusiari labana erakutsi ondoren 100 euro hartuta egin zuen ihes. Pako Aristi

Estanko baten bila abiatu da Damian kalean behera, konturatu ere egin gabe hiru hilabete baino gehiago direla *La Paz* zigarro pururik ez duela erretzen jada, eta arratsaldeko ordu horietan dena egoten dela itxita Elizondon, beste leku guztietan bezala. Hasier Etxeberria

Estankoan erositako tabako espainola, kontrabandoan lortutako holandarra piparakoa, eta berak xehatutako beste bat ustez sendagaiak ziren belar izpiak ere tartean zituena. Josu Landa

-Zer moduz, Mr. Goldstein? -esan zuen biziro erreportariak, **estankoko** saltokian kapelaren hegala apur bat tolestuz diosal egiten zion bitartean-. Lopez de Arana

Su piztekoak erosten hasi nintzen, su piztekoen mekanismoa ongi menderatzen nuelakoan; **estankoetan** bada makina bat modelo itxuroso eta diseinuzko, merke gainera, eta betiko moduan funtzionatzen dutenak, baina horiek ere badute akatsa: hamargarrenetik-edo aurrera ez direla berriro pizten; orduan itzuli behar duzu **estankora**, eta harria edo gasa, edo biak, aldatzen dizkizute; ateratzen zara oso pozik, eta, berriz ere, beste hamar bat aldiz edo piztu ondoren, metxeroa izorratzen da; orduan **estankora** itzultzen zara eta beste metxero bat ematen dizute. Jon Alonso

"Beltza ala gorria?", galdetu du Josetxok **estanko** atarian. Xabier Mendiguren Elizegi

---

estanko[2] *izond irud/hed* erabat itxia, ezeri pasatzen uzten ez diona.

Beharbada, egun hartan haize gutxi zebilen kanpoan eta beldur zen leihoak denbora gehiagoz zabalik izan beharko ote zituen baldin eta sexu usaina uxatuko bazuen hain haize gutxiko egun **estanko** batean. Harkaitz Cano

---

estanku ik **estanko**[1].

---

estanozol *iz* jateko gogoa eragiten duen anabolizantea.

Klenbuterola, flumetaxona, trenbolona, estradiola eta **estanozola** atzeman omen dizkiete, besteak beste. Berria - Euskal Herria

---

estanpa **1** *iz* paperean inprimaturiko irudia.

Saltokietan, kandelak, zapiak, liburu eta **estanpak**, eskapulario eta kutunak, dominak, ur bedeinkatuaz betetako botilatxoak, guzti-guztiak Paduako San Antonioren irudiarekin. Anjel Lertxundi

Anbereseko artista batek, Georgius Hoesnagle-k, marraztu zuen San Sebastianen **estanpa** hori *Civitates Orbis Terrarum* obrarako. Askoren artean

Margolari inpresionisten posterrak aurki desagertu ziren, eta haien ordez hiriko **estanpa** zahar batzuk zintzilikatu zituen. Iban Zaldua

Kamioiaren kabina hainbat amabirjinen **estanpaz** eta argazkiz apainduta dago. Iban Zaldua

Orduan Don Enrique Herrerak, beti bezain ziniko, **estanpa** bat eskaini zidan, Ama Birjina Doloretakoarena. Koldo Izagirre

Hilabete honen **estanpa** bat aurkezteko orduan, bi eszena ezberdin ipintzen zituzten: Edo Jano jainkoa pintatzen zizuten, bere bi aurpegidun buruarekin: bata aurreraka, eta bestea atzeraka, aitzin-gibel begira, urtezahar-urteberri sinbolizatuko balu bezala; edo, gizaseme handiki bat. Pello Zabala

Aitortu behar zuen, oro har, bizitzako liburuan gerrako **estanparen** batek bakarrik utzi ziola -haiek bakarrik- duintasunez jokatu izanaren sentipena. Ramon Saizarbitoria

Kapilauak oparitzen zizkigun otoitzerako **estanpekin** eginiko baraja atera zuen Sagarduik betiko moduan, eta eskualdi batzuk egin genituen. Koldo Izagirre

Esan nion neure buruari: "Asteasu, Albiztur edo Zizurkilgo **estanpa** bat izan daiteke". Bernardo Atxaga

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Gaur egungo **estanpa** folklorikoetan antzeztuko genukeen komeria. Xabier Etxabe

San Sebastian martiriaren nekaldiari buruzko **estanpa** sepia bat. Mirentxu Larrañaga

Gizon bat bere anomalia guztiekin deskribatuko lukeen liburua japoniar **estanpa** bat bezalako artelan bat litzateke, non eternalki ikusten baita beldartxo baten irudia behin eguneko ordu partikular batean begietsia. Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan)

Claude, gogoa beroturik, **estanpa** sorta hartaz mintzatu zen, laudorio asko eginez. Karlos Zabala

Aipatu paperaren ondoan, bada **estanpa** moduko bat ere, papera bezala hormari itsatsia, non Ama Birjinaren irudi bat ageri den kolore biziz margotua. Josetxo Azkona

· Gure gurasoak santu **estanpez** hornituta itzuli ziren, gure amaren gurasoak hilak baitziren. Pello Lizarralde

4 irudia.

Ipuinak ez dira hiriko **estanpa** edo hiritarren karikatura batzuk: azaleko itxuraren atzean karga sinboliko itzela duten istorioak dira. Irene Aldasoro

Herri txikietan bizitzeak abantaila hauek dauzka: duela ehunka urtetakoak izan litezkeen irudiak edo **estanpak** agertzen zaizkizu eguneroko bizitzan. Pako Aristi

O, o, zein **estanpa** ederra. Anjel Lertxundi

Zuhaitz misteriotsuek soa ebasten eta gatibatzen zidaten, Fujiyama maldako txabolan jarduten zuen japoniar maisu baten **estanpa** urdin ikaratuak bailiran! Itxaro Borda

5 irud/hed

Nobela laburra, eta batzuetan ipuin, besteetan **estanpa** izan daitezkeen edo diruditen atal txikitan antolatua. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estanpa bat** (9)

---

estanpatu, estanpa(tu), estanpatzen **1** du *ad* oihalez eta kidekoez mintzatuz, molde baten presioaz bertan inprimatu.

Xedea da tailer bateko eguneroko lana, tintatzea eta **estanpatzea**, espazio publikora eramatea. Berria - Kultura

Txokolarte taldeak **estanpatu** dituen elastiko bereziak ere salgai egongo dira bertan.Txokolarte taldeak **estanpatu** dituen elastiko bereziak ere salgai egongo dira bertan. Berria - Kultura

Larruzko zoru fin eta malgua zuten, eta marka-izena zeharretara **estanpaturik** ageri zuten: "Kumfy-Toes", behatzak gozo, oinak eroso. Mirentxu Larrañaga

Mugimendu hartan lo-atorra, arrosa eta fantasiazko lorez **estanpatua**, erdi ireki zitzaion. Matías Múgica

Galtzada-harrien tamainako eta urrez **estanpaturiko** ohiko sorginkeria-liburuen erakusketaren ordez, burdinazko kaiola handi bat zegoen kristalaren atzean, eta kaiola barruan Munstroen liburu izugarri-ren ehun bat ale. Iñaki Mendiguren

Amila gorria lepoan irekitzen zen, atorra zuriaren lepo hegal landu eta dotore **estanpatuak** agerian utziz. Felipe Juaristi

2 (era burutua izenondo gisa)

Alkandora **estanpatu** bat zeraman urre eta lila koloreko sagarrak zituena hondo beltzean. Bernardo Atxaga

Soineko **estanpatu** batez eta bota gorriez bere goiko maila erakutsi zigun emakume ilegorri danimarkar horrek. Berria - Kultura

Blanchek bata azkar erantzi eta lore **estanpatuzko** soinekoa jantzi du. Xabier Paya

Zelan jango du, ba, inguruan dabilkion euli mordoarekin! Azkenean, *chiffon*-ezko zapi **estanpatu** batean bildu eta mahai azpira bota du isil-gordean. Patxi Iturritegi

3 (era burutua izen gisa)

Eta, bai, amaginarrebak oparitutako salako besaulki berrian pizza jatera jesarri, telezaborra kontsumitzera, **estanpatuaren** gainean erortzen ziren pepperoni pusketei jaramonik egin gabe. Iban Zaldua

Ehun koloretsuak, marra urdinekin eta **estanpatu** dotoreekin. Anton Garikano

Gaua horrela pasa, hormako **estanpatuetako** lerro urdinak zenbatuz, leihotik N-1 errepidean zehar zihoazen autoen fluorezko sega sentituz. Harkaitz Cano

---

estanpatzaile *iz* estanpatzen duen pertsona.

Dantzariek, **estanpatzaileek**, papergileek, eskalatzaileek... osatuko dute lantaldea. Berria - Kultura

---

estanpazio *iz* estanpatzea; estanpatzearen ondorioa.

Estanpazioko makina batean zur puskak sartzen badira, ez da altzaririk aterako handik. Josu Zabaleta

Antjek zituen almanakak bezalakoa zen, **estanpazio** zaharrak: Kinderkalender, maitagarrien eta haurren marrazkiak, eta karaktere gotikoz idatzitako poesiak, niretzat ulergaitzak. Fernando Rey

Eskalatzaile eta teknikoek lurrean egindako **estanpazio** lana zinztilik jarriko dute. Berria - Kultura

---

estanpida *iz* harrapakako ihesaldia, harrapakako sakabanatzea; danbada.

Koinata ahulegi dago laguntzeko, eta berak kristoren **estanpidari** egin behar dio aurre. Anton Garikano

---

estantzia *(orobat **estancia** g.er. eta **estanzia** g.er.) iz* azienda gordetzeko eta hazteko hedadura.

Bere gastuak murriztearen truke, Dahlmann-ek lortua zuen Florestarrena izana zen Hegoaldeko **estantzia** bat abaildura segurutik salbatzea; eukalipto baltsamikoak eta noizbait gorrimin izandako etxe arrosakolore luze hura irudikatzea zen, hain zuzen, haren oroimenaren ohituretako bat. Juan Garzia

Eguerditan ardi rantxo edo **"estanzia"** batean izan gira bazkaltzen, eta bixtan dena bildoskia brasan errerik hango moldean eman daukute, bai jana eta bai lekua arras gustatu baitzauku. Herria

El Calafateko azken egunak 900 metra gorako mendiko **estancia** baten bisitatzen pasatu ditugu, baita *asado* eta xokoletezko goxoki jastatzen. Herria

Gautxoekin **estantzietan**. Herria

"Bihar **estantzian** esnatuko naiz", pentsatzen zuen, eta aldi berean bi gizon izatea bezala zen; udazken egun hartan eta aberriaren geografian beti aurrera zihoana, eta bestea, eritetxe batean kartzeleratua eta eguna joan eguna etorri morrontza berdinetara lotua. Juan Garzia

Harresiak ere lehenengoz ikusi ditut, jardinean ibili naizenean ere ez naiz konturatu hain harresi handiak zeudenik **estantziari** ingurua egiten. Joseba Sarrionandia

Gaur Gorriarekin batera joan naiz jardinean eta **Estantziaren** inguruan oinez paseoan. Joseba Sarrionandia

---

estanzia ik **estantzia**.

---

estanziero *iz* estantzia baten jabea.

Estanzieroek ardilapurtzat zituzten eta ona hil bakoitzeko bi libra esterlina ordaintzen zuten. Joseba Sarrionandia

---

estari *iz*

Gure hizkuntzak berak, kultur hizkuntza orok bezala, bere filosofia dauka **estarian**. Joxe Azurmendi

Jorge Manriqueren koplak, Erromantzetegia, Don Quixote, Bizitza ametsa da, Karmel Mendirako Igoera moduko lanek munduaren intuizioa eta bizitzaren kontzeptua, *Weltanschauung und Lebensansicht,* dauzkate **estarian**. Joxe Azurmendi

---

estarta ik **estrata**.

---

estarter *iz* eztanda motorrak abiarazteko gailua, airea karburadorera igarotzea ahalbidetzen edo eragozten duena.

Stan ziztuan sartu zen kotxe barruan eta, besoa luzatuz, **estarterra** kendu zuen. Lopez de Arana

---

estasi *(orobat **extasi** g.er.)* **1** *iz* sentipen edo zirrara bortitz batek eraginik kordegabeturik bezala gelditzen denaren egoera, gogo bahitzea.

Obra extatikoak **estasia** (bere baitatik ateratzea) eragiten du. Josu Zabaleta

Bakean utzi zuten, **estasia** ez oztopatzeko eta maitea ez iratzartzeko berak nahi arte. Askoren artean

Seguru haren ondoan **estasiak** jota geratzen zinela, aingeru baten aurrean bazeunde bezala. Juan Kruz Igerabide

Mistikoek diotenez, berriz, ganbara biribil halako bat ematen die ikustera **estasiak**, eta bertan pareten jira guztia hartzen duen liburu biribil izugarri handi bat, bizkar etengabe bakarra ageri duena. Juan Garzia

Jainkoak hala nahita, anai Pazifiko, toki bakarti batean otoitzean zegoela, **estasiak** hartu zuen, eta bere anaia Humileren arima, gorputzetik ateratako une berean, zuzen-zuzen zerura igotzen ikusi zuen, inolako traba edo eragozpenik gabe. Askoren artean

Hartan, urdina desagertu itsasotik, eta hau limoi gardenezko olatutan pirirkatzen zen, hondartzan kiribilduz eta harrotuz eta lehertuz, eta **estasiak** begietan eztanda egin eta gozamen gardenezko olatuek zeharkatu zuten bere gogoaren zola. Anton Garikano

Kristo bera esan eta ulertezineko aintzaz Aitaren eskuinaldean eseririk ikusten zuen **estasian**. Askoren artean

Eta hara, **estasian** jasoa, zeruko hainbat aulkiren artean bat ikusi zuen, besteak baino nabariagoa, harribitxiz apaindua eta aintza guztiz distiratsua. Askoren artean

Denboraldi luzeetan esperientzia mistikoetara emana bizi izan zen, eta sarri askotan Jainkoarengan murgiltzen zen **estasian** -nik neronek ikusia dut hori eta testigu naiz-, zeren gizakien artean giza bizitza ez baina aingeruena zeramala baitzirudien. Askoren artean

Bihotzean Jainkoaren hitzaren indarra sentituz, kordea galdurik, **estasian** erori zen. Askoren artean

Anaia **estasian** erori zen: aulki asko ikusi zituen zeruan, eta haien artean bat besteak baino itzal handiagokoa, harribitxiz hornitua eta distira izugarria zuena. Askoren artean

Maiz, gehiegizko debozioak eraginda, **estasian** murgiltzen zen, kordea galdurik eta giza zentzumenez gaineko zerbait sumatuz. Askoren artean

Gizakiak eternitatea irrikatzen du, baina ezin lor dezake haren suzedaneo bat baizik: **estasiaren** unea. Karlos Linazasoro

Lanik interesgarriena Scriabinen ***Extasiaren*** *olerkia* izan zen. Berria - Kultura

Espiritualtasun gozo bat, Santa Teresaren **estasitik** hurbil zegoena. Patxi Iturritegi

Estasi hark -zeren nola deitu bestela? - esatera zihoan guztia ahaztarazi zion Lily Briscoeri. Anton Garikano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Jarduera espiritualaren bidez **estasi** erlijiosora iristea. Josu Zabaleta

Nork ezagutzen du, nik ez bada, samurtasun horien gozotasun, eromen, **estasi** ikarati, haragizko, ideal, gizonarena baino gehiagokoa. Josu Zabaleta

Gustatzen zaion moduan, **extasi** kolektiboa eragingo lukeen momentua. Berria - Kirola

Extasi aurreratuegi hura zaldun zibilez jantzitako batzuen xehetasunak edertua mendian behera zaldieria bailetorren egin zuen aurrera gudari lusoen Irizar autobusak. Berria - Kirola

Amaitua ote zen glosolaliaren **estasi** hilkorra? Karlos Linazasoro

Nire **estasi** bakarra onanismoa da. Karlos Linazasoro

Erabateko **estasia**. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osgai gisa)

Bazuen ibileran (oximorona onartzeko modukoa bada) halako baldartasun graziaz bete bat, halako **estasi** -hastapen bat. Juan Garzia

Alboan nuen gizaseme gorraizetu samartzen hasiari bere **estasi** -une propialari buruz itaundu nion. Karlos Linazasoro

Maitasunaren sua, maitasun neurrigabea edo gehiegizkoa [...] Bonabenturaren teologia mistikoaren hizkera bereziari dagozkio: **estasi** -maitasuna adierazten dute, arima Jainkoarengan erabat barneratzen duena, eta ibilbide espiritualaren gailur altuena. Askoren artean

Zati bat lagun hurkoen aldeko lan probetxugarrietan ematen zuen, eta beste zatia **estasi** -kontenplazio lasaietan. Askoren artean

Beregan zuen Jainkoaren grazia honen dohainagatik, San Frantzisko ez zen bakarrik **estasi** kontenplazioz Jainkoarengana eramana izaten, baizik eta inoiz aingeruen bisitaz kontsolatua ere izaten zen. Askoren artean

Neska batez ero-ero maitemindurik, zorionezko **estasi** gisako batean ezkondu zen harekin. Josu Zabaleta

Bietan, une batez, **estasi** moduko bat izan nuen (birikak bete zitzaizkidan eta trenaren leihoetatik zeppelinak ikusi nituen, zeruan, zeppelin asko). Unai Elorriaga

4 irud/hed

Ez dut sentitu gehiago hain sentsualitate eta erotismo zirraragarririk; hasi oinetako behatzetan eta buka buruko ileetan, dena dardara eta zapore nintzen, ni neu osorik gozamen, eztitasun, **estasi**..., ez dakit. Juan Kruz Igerabide

Nire **estasia**, Errealak partida osoko gol bakarra sartu zuenean! Joan Mari Irigoien

Indarra galdu zuen berak hainbeste eskertzen zuen **"estasi"** haren, begirada isil haren aldean. Anton Garikano

-Horrela, horrela, segi horrela! -xaxatu du lodikote biziotsuak, begi biak txilotuta, **estasi** gozoan. Patxi Iturritegi

5 droga sintetiko afrodisiakoa, haluzinazioak eragiten dituena.

Estasiak eta marihuanak oroimen arazoak eragiten dituztela esan dute adituek. Berria - Gaiak

16 kilo anfetamina, lau kilo eta erdi kafeina, hiru gramo **extasi** eta heroina gramu bat atzeman zituen asteartean jendarmeriak Alemaniako matrikula zeukan auto batean. Berria - Euskal Herria

Speeda, **extasia** eta kokaina boladaz pasatako droga bigunak dira hemen. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estasi moduko (3); **estasi pilula** (7); **estasi pilula atzeman** (3); **estasia eta** (3); **estasiak hartu zuen** (3); **estasian erori zen** (3); **eta estasia** (7); **eta estasian** (5); **nire estasia** (3)

---

estasialdi *(orobat **estasi-aldi**) iz* estasizko ladia.

Gizon aingerutar hau Jainkoaren graziak gero eta aurrerago eraman zuen bertutez bertute, zeruko dohainetan, jainkozko goi-altxatze eta **estasi-aldietan**. Askoren artean

Kontenplaziozko **estasi-aldi** hauetan Jainkoak agertzen zizkion ez bakarrik egungo eta etorkizuneko gauzak, baizik anaien pentsamendu eta desira ezkutuak ere bai. Askoren artean

Estasialditik itzulita, anaiak elizatik irteten ari zen gizon dohatsuari jarraitu zion, ohi bezala. Bere arreta askatasun handiagoz Jainkoarengana zuzendu ahal izateko, eta bere **estasi-aldi** sarrietan zeruko egoitzetan sartu eta ibili ahal izateko Askoren artean

---

estasiatu, estasia(tu), estasiatzen **1** ad *ad* estasiak hartu.

Estasiatua zegoen, baina ez zen ilapsoa, entzumenari zegokion gogo-bahiketa baizik. Pianoa jotzen zuen amonak, eta **estasiaturik** aditzen nionez gero, zera esan zidan: nahi nuenean joateko bera ikustera. Karlos Linazasoro

Libre da **estasiatzea** jainkotasunak komunetako kabinetaraino ezinbestean eginiko bide horretan. *Ezustea Ezuste* idatzi zuten platoko hormetan, berrogeita lau urtez elkar ikusi gabe, eta negar egin genuen gogotik, mononukleosiak jota, eta **estasiatu** egin nintzen Kapitulinaren alitosi ahaztezinean, Melezioren alopezia berdingabean, Flumenzioren piorrea maitagarrian. Joxan Elosegi

Minbizi maltzur batek eta nik egunero jotzen genuen eta asko maite nuen eta hil egin zitzaidan eta hari gustatu egiten zitzaion, **estasiatu** egiten zuen nire larruzko gerriko beltzak, eta garrasi haiek. Karlos Linazasoro

2 (era burutua izenondo gisa)

Denver ikusi zuten eskaileretan eserita, eta harago, atariak bidearekin bat egiten zuen lekuan, auzoko hogeita hamar emakumeren aurpegi **estasiatuak**. Anton Garikano

---

estasibasifobia *iz* ibiltzeko edo zutik egoteko beldur gaixotia.

Ea zer moduz nire **estasibasifobia**. Karlos Linazasoro

Estasibasifobia sendatze aldera. Karlos Linazasoro

Niri ia-ia pasatu zait **estasibasifobia**. Karlos Linazasoro

Pairatuko al du, izan ere, Jainkoak, nik bezala, **estasibasifobiarik**? Karlos Linazasoro

---

estatal *iz* estatuarena, estatuari dagokiona.

Egungo Estatuak eta erakunde **estatal** guztiak. Joxe Azurmendi

Euskal esparruan hartzen diren erabaki ekonomikoek «bigarren mailako garrantzia dute»; izan ere, botere **estatalen** «mende» daude, eragiteko eta erantzuteko oso ahalmen murritzarekin. Berria - Ekonomia

Antzina bateko nafar aparatu **estatalaren** ametsa. Iñaki Segurola

Gure telebista kate **estatalak** isilik izan ziren ordubetez; 14: 00etan egin zuten albistegia, azkenik. Berria - Mundua

Ados al zaude Petrolio-Hobi Fiskal Boliviarrak bersortzearekin, kapitalizatutako petrolio enpresen akzioen jabego **estatala** berreskuratzeko? Berria - Mundua

Bretton Woodseko erakundeak, [...] tresna izan ziren errentako ekonomiak edo ekonomia erdi **estatalak** kapitalismoaren zabalkundera irekitako espazio bihurtzeko. Koro Navarro

---

estatalismo *iz* joera politikoa, estatua beste erakundeen gainean jartzen duena.

Pertsonaren eta Estatuaren arteko harremanetan aztertzen du askatasunaren kontzeptu definitzailea, bi muturrak, indibidualismoa eta **estatalismoa**, gaitzetsi ondoren. Joseba Zulaika

---

estatalista *izond* estalatismoaren aldekoa.

Hego Euskal Herriko sindikatu abertzaleen eta **estatalisten** arteko gatazka neoliberalismoaren onarpenean oinarritzen dela esan zuen atzo Andoni Kaiero Deustuko Unibertsitateko katedradunak. Berria - Ekonomia

ETAren zatiketaren ondoren sestakoak borroka politiko eta sindikalera lerratu baitziren, eta mugimendu **estatalistetan** sartu, ikuspegi internazionalista bultzatzeko. Juan Kruz Igerabide

Osakidetzako 20.000 langileri eragiten dien akordioa SME sindikatu «**estatalistarekin**» hitzartu duela gogorarazi zuen. Berria - Ekonomia

Politika **estatalistaren** erantzuleen kontra. Berria - Mundua

«1917ko Iraultza baino pixka bat lehenago idatzitako Estatua eta Iraultza liburuan, Parisko Komunatik ondorioak atera zituen Leninek», gogoratu zuen Ortzik, «eta ez zen inondik ere gero agertuko zen bezain **estatalista** eta autoritario agertu. Berria - Kultura

---

estatika 1 *iz* mekanikaren alorra, orekan dauren indarrak estudiatzen dituena.

Aurrerantzean, funtsezko hatsapen batzuk bakarrik hartuko ditugu kontuan; haiek gabe ezingo genieke **estatikak** agertzen dituen arazo berezienei heldu, ezta hizkuntza egoera jakin bat zehaztasunez azaldu ere. Isabel Arrigain

2 bizikleta estakikoa.

Estatikaren hotsa izan zen bozgorailutik heldu zitzaidan erantzun bakarra. Iban Zaldua

---

estatiko *izond* mugimendurik edo aldaketarik ez duena.

Nozio hori ez da garbi azalduko ikuspegi **estatikotik** eta ikuspegi ebolutibotik bietatik aztertzen ez den artean. Isabel Arrigain

Hizkuntzalaritza **estatikoari**, hau da, hizkuntza egoera baten deskribapenari, gramatika esan diezaiokegu. Isabel Arrigain

---

estatikoki *adlag* estatikaren aldetik.

Bestalde, hizkuntza bakoitzak ikertzeko gai bat osatzen du, eta estudioa aurrera joan ahala, aldizka historikoki eta **estatikoki** kontuan hartzeko beharrean aurkituko gara. Isabel Arrigain

Kreazio-lan **estatikoki** perfektu horietako bat da, Egilearen geraleku diren horietakoa, eta giza nortasun kontzientea izugarri hurbilketa akastuna da askoz ere maila goragoko Izaki batengana, Berau izanik giza psikearen bi organo ezberdin baina banaezin horien egilea. Iñaki Mendiguren

---

estatikotasun *iz* estatikoa denaren nolakotasuna.

Haren iritzian, "zentrikotasunaren" artea da espresionismoa (inpresionismoaren "azentrikotasunari" kontrajarririk), esentzialtasunaren, simetriaren, **estatikotasunaren** artea. Josu Zabaleta

Ez dirudi kasualitatea izan behar duenik aspalditik egotzi zaizkien pasadizoek, modu askotakoak izan arren, halako zer bat izatea guztiek ere, **estatikotasun** edo bat, abstentzio duinezko jarrera bat, beren buruak biziaren ibai nagusitik baztertutzat jotze halako bat, beren gogozkoa zein gogoz kontra onartua. Juan Garzia

---

estatina *iz*

Bihotz-hodietako gaitzen kontra erabiltzen diren ohiko dositan eman zizkieten **estatinak**. GIB Giza Immuno-eskasiaren Birusa duten pertsona askok ere hartzen dituzte **estatinak**. Berria - Gaiak

Estatinak hartzen ibili ziren denboran karga birikoak behera egin zuela nabarmen, eta **estatinak** hartzeari utzi ziotenean giza immuno-eskasiaren birusa indartu egin zela berriro. Berria - Gaiak

Erretro-birusen kontrako sendagaiak baino dezentez merkeagoak dira **estatinak**, eta, gainera, generikoak ere badaude merkatuan. Berria - Gaiak

---

estatismo *iz* estatikotasuna.

Epikureismoa **estatismo** ororen [...] etsai porrokatua da eta adiskide taldeak lantzen ditu, elkarren kolaborazioan, non jakintsua, gizartearen eredu dena, bere zereginetan murgildurik bizi den. Xabier Amuriza

---

estatista *iz* estatu bat gobernatzeko gaitasun politikoa duen pertsona.

Armadak ez bezala, **estatisten** oso bestela, ez dira estatu baten izenean ari. Iñigo Aranbarri

Zer eskatzen zaio presidente bati? [...] Garai batean, **estatista** baten ikuspegia, karisma, herrialde baten aberastasunaren kudeatze arrazionala, kaleko jendearen arazoak ulertzeko giza neurria, kanpo harremanetarako abilezia makiavelikoa, jende multzo bat gidatzeko argitasuna, baita haize kontra eta iritzi publikoaren kontra ere. Berria - Mundua

---

estatistika *(orobat **estatiztika** g.er. eta **estadistika** g.er.)* **1** *iz* zenbakizko emaitzen matematika bidezko biltze, sailkatze eta aztertzean datzan zientzia; delako emaitzak berak.

Gezurrak, egiak eta **estatistikak**, hiru kategoria horiek definitu beharko lirateke ekonomian, batez ere, **estatistikek** eta datuek pairatzen dituzten manipulazioak. Iñaki Heras

Europako populazioa zahartzen ari dela diote **estatistikek**: [...]. Berria - Harian

Estatistikek diotenez, gora egin du, 2001etik hirugarrenez, pobrezian bizi den herritar kopuruak; gauza bera gertatu da osasun agiririk ez dutenekin. Berria - Mundua

Beti erabili daitezke **estatistikak**, nolabait, batera edo bestera; beti izango da ikuspegi bat defendatu ahal izateko **estatistika**, datu edo zifraren baten "irakurketa" posible bat. Iñaki Heras

Eskura dauden **estatistikek**, ordainketa-balantzeetan ageri diren fluxuak baino ez baitituzte zenbatzen, gutxietsi egiten dute fenomeno horren zenbaterainokoa. Koro Navarro

1998an tuberkulosiak 1,86 milioi lagun eraman zituen mundu honetatik, eta malariak 2 milioi inguru, nahiz gobernuek eta osasun elkarteek erabiltzen dituzten **estatistikak** eta datuak ez datozen bat inondik ere. Pello Salaburu

Estatistika bat egin beharko zen Iduseko itsuekin. Unai Elorriaga

Hannari galdetu nion ea zergatik ez zuen **estatistikan** sinesten, baina bai, ordea, Patuan eta horrelakoetan. Joxe Austin Arrieta

Gizon horrek **estatistikak** manipulatu ditu. Berria - Gaiak

Estatistiken arabera Indian erlijioak honelaxe daude bananduak: [...]. Gotzon Garate

Komizitateak egia biribiletatik urruntzen gaituelako (konparazio batera ongiaren eta gaizkiaren absolutismotik, logikaren eta **estatistiken** absolutismotik). Pello Lizarralde

Autismo klasikoa dutenen artean, ehuneko 50 mutuak dira, sekula ez dute hitz egiten; Stephenek, zentzu batean, ihes egin die **estatistikei**; artearen bidez, hein batez, eta laguntza eman diotenen jarrera arretatsuari esker, beste hein batez. Xabier Olarra

Langabezian zeuden gizonak ziren, adinean sartuxeak gehienak, **estatistiketan** "langabetu desanimatuak" sailean sartu ohi diren horietakoak eta lapurreta ttikiokin bizirauteko txanpon puskaren bat lortzen zutenak. Harkaitz Cano

Sexualitateari dagokionez, **estatistikak** ez direlako inoiz izaten fidagarriak. Luis Elberdin

Estatistikak: 80 partida jokatu ditu: 74 irabazi ditu eta sei galdu. Berria - Kirola

Suitzarraren aurtengo **estatistikak** bikainak dira: 69 garaipen eta sei porrot. Berria - Kirola

Estatistikak eta kopuruak azpimarratu ohi direla badakit, baina neuri ez didate ezer esaten, geure proiektua epe luzera pentsatuta dagoelako, eta emaitzak datozen belaunaldietan islatuko dira. Berria - Kultura

Apurka-apurka, **estatistikak** hobetzen ari da, azken bi partidetan eginiko lanari esker batik bat. Berria - Kirola

Bere **estatistikak** ez dira txarrak: 20 gol lau partidatan, bost gol partidako. Berria - Kirola

Estatistikak apurtzeko daudela erakutsi nahiko du gaur Javier Aguirreren taldeak. Berria - Kirola

Florak **estatistikaren** batzuk aurkituak zituen han edo hemen, munduan egun jakin batean segundo bakoitzeko zenbat jende jaiotzen eta hiltzen zen kalkulatzen bide zituztenak. Oskar Arana

Etzi **Estatistikako** azterketa du. Iban Zaldua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estatistika ofizialen arabera, 4.000 lagunetik gora hil dituzte Guatemalan sei hilabetean. Berria - Gaiak

Ez dago **estatistika** zehatzik garai bakoitzean zabalduen egon diren formatuei buruz. Josu Zabaleta

Estatistika txar horiek txukuntzen hasteko garaia badu Osasunak. Berria - Kirola

Behin-behinekotasunaren gaineko **estatistika** faltsuak ematea leporatu dio. Berria - Ekonomia

Estatistikarik fidagarrienen arabera, Estatu Batuetan Ergel helduen kopurua ia-ia hogeita hamar milioiraino iristen da, estatistikariak barne. Xabier Olarra

Ez zarete mapa soziologikoan agertu ere egiten, urtean irensten dituzuen antsiolitikoen kopurua dakarren **estatistika** txepelen batean ez bada. Pako Aristi

Euskal Herriko oinarrizko **estatistikak** liburu batean bildu ditu Aztiker ikerguneak. Berria - Harian

Estatistika zentzurik gabeak erabiliz eta funtsik gabeko baieztapenak eginez. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Batzuetan, uko egiten zioten galderei erantzuteari; beste batzuetan, labur, zehatz eta argi erantzuten zuten, epaileei ez baina **estatistika**-egile batzuei erantzungo baliete bezala, halako taula berezi batzuk betetzeko. Jose Morales

Nafarroako **Estatistika** Erakundeak sakondu eta zabaldu egin du aurretik INEk 1999. urtean egindako azterketa bat. Berria - Euskal Herria

Administrazioek eta **estatistika** erakundeek zatikatutako errealitatearen oinarrizko datuak jaso, aztertu, parekatu eta Euskal Herria datuen talaiatik 2006 liburuan bildu ditu. Berria - Harian

Paraje haietako irudiak eta alderdi ekonomiko, osasunezko eta medikuntzakoei buruzko **estatistika**-taulak ikusi nitian. Xabier Olarra

Hornitzaileen eta bezeroen tratuetan eskariaren eta eskaintzaren gorabeheretan suma daitezkeen **estatistika**-ereduak "goraldien" eta "beheraldien" segida batean adierazten ziren nabarmen. Iñaki Mendiguren

Non ote ziren nire binilozko diskoak, nire **estatistika** apunteak...? Gizabanako pribatuak, berriz, milioiak dira, eta beraien portaeraz, Mendebalde modernoko egoeran, **estatistika**-azterketa zehatzak egin izan dira. Patxi Iturritegi

Estatistika lan bat egiten ari zelako. Harkaitz Cano

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko **Estatistika** Plana onartu zuen atzoko saioan. Berria - Harian

Espainiako **Estatistika** Institutuaren datuen arabera, 2004 eta 2005 bitartean, bilbotar bakoitzak 116 litro ur kontsumitu zituen egunero. Berria - Harian

Bjorn Lomborg Aarhus-eko Unibertsitateko **estatistika** irakaslea da gaur, Danimarkan. Berria - Gaiak

Hori **estatistika** kontua ez denez, ez dakit nik inor ere arduratu den holako azterketa motez. Pello Salaburu

Arazoa errepika ez dadin, **estatistika** akatsak nola zuzendu eta zein neurri hartu aztertuko dute etorkizunean. Berria - Ekonomia

Estatistika datuak onak dira. Iñaki Heras

Egun, 7.800 kolono inguru bizi dira Gazan, **Estatistika** Bulegoaren arabera. Berria - Mundua

Nafarroako **Estatistika** Institutua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hizkuntza Kontseiluak eta INSEE **estatistika** etxeak agertu dituzte, azken jende kondaketan bermaturik, gutarteko jendeak frantsesaz aparte erabiltzen dituen mintzairen xifreak; hor ikusten da 63 000 herritar euskaraz mintzo direla komunzki. Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

AEBetako Osasun **Estatistiken** Zentro Nazionalak (NCHS) emaniko erreferentziak erabili dira 1970eko hamarkadako amaieratik. Bielorrusiako minbizi **estatistika** nazionalak eta Ukrainako zein Errusiako datu demografikoak erabili ditu Greenpeacek. Berria - Gaiak

Biztanleria zentsua, Biztanle errolda eta Biztanleria **estatistika**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

5 (hiru osagaiko hitz elkartuetan)

Erakundeen arteko langabezia **estatistika** desakordioak ohikoak izaten dira. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzo espainiako estatistika (3); **beste estatistika** (3); **da estatistika** (3); **datu eta estatistika** (4); **du estatistika** (3); **espainiako estatistika** (33); **espainiako estatistika erakundeak** (5); **espainiako estatistika erakundearen** (6); **espainiako estatistika institutuak** (11); **espainiako estatistika institutuaren** (5); **estatistika batek** (3); **estatistika bulegoak** (3); **estatistika bulegoaren** (4); **estatistika bulegoaren arabera** (4); **estatistika datuak** (3); **estatistika erakundeak** (40); **estatistika erakundeak atzo** (7); **estatistika erakundeak egindako** (4); **estatistika erakundeak eustat** (4); **estatistika erakundearen** (18); **estatistika erakundearen arabera** (14); **estatistika eta** (10); **estatistika eta datu** (3); **estatistika horiek** (3); **estatistika horietan** (3); **estatistika institutu** (3); **estatistika institutua** (4); **estatistika institutuak** (16); **estatistika institutuak emandako** (4); **estatistika institutuaren** (9); **estatistika institutuaren arabera** (8); **estatistika kontua** (3); **eta estatistika** (17); **eurostat estatistika** (5); **euskal estatistika** (13); **euskal estatistika erakundeak** (9); **euskal estatistika erakundearen** (3); **eustat estatistika** (8); **eustat estatistika erakundeak** (4); **eustat estatistika**

Holandan, XVII. mende hasieran, oso modan jarri omen zen etxeetan tulipanak edukitzea, Turkiatik ekarri berria zen halako landare bat etxean jartzea **estatus** sozialaren sinbolo izateraino. Iñaki Heras

Zer esan nahi du, zehazki, presoei **estatus** politikoa aitortzea? Berria - Harian

Eliz koroatzearen bidez erresuma burujabeen **estatus** politikoari bere bedeinkazioa ematean, aitasantutza bizitza politikora berriro ari zen ekartzen Gizarte Helenikoaren hazkundealdian hain emankor izandako aniztasuna eta aukera. Iñaki Mendiguren

Bilakaera horien ondorioz, **estatus** mistikoan maila bat jaitsiko du: Jainkoa izatetik jainkosa bat izatera pasatuko da. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Gizazpiko galtzaile" hau "fedegabetzat" hartzen denean, konbertsioaren bidez berreskura dezake giza **estatusa**. Iñaki Mendiguren

Haien gizarte-**estatusa** oraindik apala zen, baina poltsa zeukaten eta gorabidean zeuden. Iñaki Mendiguren

Artea instituzio soziala bilakatu da, beraz, gaur egun, historian oso aldagarria den instituzio bat; ekoizpen material batzuei (irudi askori, batez ere) artelanaren aura-**estatusa** ematea du eginkizuna. Josu Zabaleta

Web-guneak egilearen edo editorearen -informazioa argitaratzen duena horren egilea ez bada- identifikazioa eduki behar du (izena, maila akademikoa, lanbide-**estatusa**). Askoren artean

Astebetean eskola praktikoak emango ditu Liverpoolen Muguruzak, «irakasle **estatusa**» izango du han. Berria - Kultura

Ezta langile **estatusik** ere, eta ez dizkiete beharrezko segurtasun baliabiderik ematen. Berria - Ekonomia

Agur esan beharko dio, hasteko, gerra-kazetari **estatusari**. Edorta Jimenez

Paradoxa bete-betekoa da, tratua berez berezia izaki, preso politiko **estatusa** helburu lortezina bilakatzen da. Jokin Urain

4 irud/hed

Asko dira gainbeheraren arrazoiak, euskarak gizartean daukan **estatusa** denetan oinarrizkoena. Koldo Zuazo

Kosovoko **estatusa** zehazteko negoziazioak egin dituzte bi aldeetako ordezkariek Vienan. Berria - Mundua

Bukatugabeari bukatuaren **estatusa** eman zioten Peggy Guggenheimek eta Peggy Guggenheim aholkatu zutenek. Anjel Lertxundi

Literaturan, hizkuntzaren **estatusa** bera dago auzitan; hala, Stéphane Mallarmé poetak aipatzen du badela pitzadura bat hitzaren eta haren erreferentzia den gauzaren artean. Juan Garzia

Zer **estatus** aitortu behar zaie gutunei, oharrei, beste norbaitek kontatutako elkarrizketei, entzuleek idatziz jasotako hitzaldiei, laburbilduz, gizabanako batek hiltzean bere inguruan uzten duen hitzezko arrasto jario eskerga horri? Xabier Arregi

Bera ahalegintzen da erakusten diskurtsoaren autonomiak eta espezifikotasunak ez diola ematen diskurtso horri idealtasun hutsaren **estatusa** ezta erabateko independentzia historikoaren **estatusa** ere. Xabier Arregi

5 *irud/hed (izenondo eta izenlagunekin)*

1837an, pertsierari britainiar Indian **estatus** ofiziala kentzeko azken urratsa egin zenean, Indiako britainiar gobernuak ez zuen ingelesa sartu aurrez pertsierak betetako beste xede guztietarako. Iñaki Mendiguren

EAJk, CiUk eta BNGk adostutako oinarrizko idatzian herrien Europaren aldeko apustua egiten da eta «hiru nazio hauen **estatus** politikoa onartzea» eskatzen da. Berria - Euskal Herria

PSN zalantzarik gabe engaiatuta dago Nafarroaren gaur egungo **estatus** instituzionalaren defentsan. Berria - Euskal Herria

Euskarak **estatus** legal bakarra izan behar du Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

Bizkaiko Altzairutegi Trinkoak (ACB) Arcelor taldean barruan **«estatus** berezia» izatea eskatu dio Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Guy Dolle multinazionaleko zuzendaritzako presidenteari. Berria - Ekonomia

Hainbatek, euskarak **estatus** normalizatua izan dezan, ezinbestekotzat jotzen dute euskaraz arituko litzatekeen unibertsitate elebakar bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zientziaren **estatus** kognitiboa. Askoren artean

Horrek behartzen gaitu egungo gizartean zientziari ezagutzen zaion **estatus** gorenaz galdetzera, eta erantzunaren arabera, baita estatus horri darizkion eragin politikoen, sozialen eta etikoen ebaluazioa egitera ere. Askoren artean

Dolarraren nazioarteko **estatusaren** auziak, erronka politiko handia izan arren, ez zuen ia eraginik izan munduko hazkundearen erritmoan. Koro Navarro

6 *irud/hed (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)*

Frantziako Asanbleak onartu egin du EDF eta GDF argindar eta gas konpainia publikoen **estatus** aldaketa. Berria - Ekonomia

7 *irud/hed (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)*

Bere obraren parte handi bat proiektu **estatusean** gelditu da, eta, horregatik, «paperezko arkitekto» gisa definitu izan dute. Berria - Kultura

Boteretsua eta aberatsa izan arren, PSGk ez du errege **estatusik**. Berria - Kirola

Entrenatzaileak jakintsu **estatusa** lortu du, eta altxorra eskuratuz gero, jainko bihurtuko dute Coruñan. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere estatus (6); **bere estatusa** (3); **beste estatus** (5); **beste estatus bat** (3); **du estatus** (4); **duen estatusa** (4); **edo estatus** (4); **egungo estatus** (8); **egungo estatus politikoa** (4); **egungo estatusa** (5); **estatus aldaketa** (6); **estatus bat** (6); **estatus bera** (5); **estatus berezia** (9); **estatus berri** (4); **estatus berria** (3); **estatus eta** (3); **estatus hori** (7); **estatus juridiko** (10); **estatus juridiko politikoa** (3); **estatus legal** (3); **estatus legal bakarra** (3); **estatus ofiziala** (4); **estatus politiko** (9); **estatus politiko berri** (4); **estatus politikoa** (67); **estatus politikoa aitortzea** (4); **estatus politikoa berreskuratzeko** (3); **estatus politikoa onartu** (3); **estatus politikoa onartzea** (8); **estatus politikoa onartzeko** (3); **estatus politikoan** (4); **estatus politikoaren** (14); **estatus politikoari** (3); **estatus sozial** (3); **estatus soziala** (6); **estatusa duen** (3); **estatusa eman** (3); **estatusa ematen** (6); **estatusa eta** (7); **estatusa ez** (12); **estatusa ez da** (3); **estatusa ez dela** (3); **estatusa izan** (4); **estatusa izango** (3); **estatusa izatea** (4); **estatusa lortu** (3); **estatusa lortzea** (4); **estatusa zehazteko** (4); **estatusari buruz** (4); **estatusari buruz hitz** (3); **estatusari buruzko** (4); **estatusari buruzko negoziazioak** (4); **eta estatus** (20); **eta estatus politikoa** (10); **eta estatusa** (5); **euskal presoen estatus** (6); **euskarak estatus** (4); **euskarak estatus legal** (3); **gure estatus** (6); **kosovoko estatusa** (4); **kosovoko estatusa zehazteko** (3); **kosovoren estatusa** (4); **kosovoren estatusari** (3); **nafarroako estatus** (3); **nafarroaren egungo estatusa** (3); **nafarroaren estatus** (8); **nafarroaren estatus politikoa** (3); **nafarroaren estatusa** (5); **nafarroaren estatusa ez** (3); **pareko estatusa** (4); **politiko estatusa** (4); **politikoaren estatusa** (3); **preso estatusa** (3); **preso politiko estatusa** (3); **preso politikoaren estatusa** (3); **presoen estatus** (12); **presoen estatus politikoa** (9); **presoen estatus politikoaren** (3); **zer estatus** (4)

---

estatutario *izond* estatutuari dagokiona.

Ahaztu zaie burujabetza hitza, eta PSOErekin horrelako erreforma **estatutario** bat lantzea ari da bihurtzen Imazek gidatzen duen EAJ honen helburu nagusia. ez dugu erreforma **estatutariorik** nahi, Euskal Herriaren hitzarekiko begirunean oinarritutako konponbide demokratikoen garaia da Itun **Estatutarioa** «iruzur **estatutarioan**» bilakatu dutela leporatu zien, 1982n LOAPA (Prozesu Autonomikoa Armonizatzeko Lege Organikoa) abian jarri zutelako. Berria - Ekonomia

EAJk bai Lizarrako akordioaren bitartez bai Jaurlaritzaren Estatutu proposamenarekin azken hogei urteotan marko **estatutarioari** eta konstituzionalari izan zaion errespetua eta onespena hautsi egin du, euskal herritarren aniztasun ideologiko eta identitarioa mespretxatuz. Berria - Euskal Herria

---

estatutismo *iz* autonomia estatutuaren aldeko jarrera.

«Berriz ere **estatutismoaren** bidea errepikatzea arduragabekeria litzateke», gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Otegiren ustez, «herri honek bi aukera ditu» igandeko hauteskundeetan: «EAJren, Imazen eta haien laguntzaileen eskutik **estatutismoaren** bidetik jarraitzea» jo zuen lehen aukeratzat. Berria - Euskal Herria

Herenegun Legebiltzarreko batzordean Estatutu Proposamenari buruzko txostena onartu izanak **«estatutismoa** agortu» egin dela egiaztatzen du. Berria - Euskal Herria

---

estatuto ik **estatutu**.

---

estatutu *(orobat **estatuto** g.er.) iz* zenbait araudiri eta bereziki autonomia erkidego baten edo lurralde baten eskukotasuna araupetzen duenari ematen zaion izena. *(ikus beheko konbinatorian* estatutu *izenaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ari diren estatutu (4); **aurkeztutako estatutu** (11); **aurkeztutako estatutu berrirako** (4); **autonomia estatutu** (8); **bere estatutu** (6); **beste estatutu** (8); **beste estatutu bat** (4); **da estatutu** (12); **dago estatutu** (5); **dela estatutu** (4); **den estatutu** (5); **dio estatutu** (6); **dira estatutu** (4); **diren estatutu** (7); **ditu estatutu** (4); **dituzten estatutu** (4); **donostia estatutu** (4); **du estatutu** (12); **duen estatutu** (13); **dugu estatutu** (4); **dute estatutu** (5); **eaeko estatutu** (24); **eaeko estatutu berrirako** (4); **eaeko estatutu proposamena** (7); **eaeko estatutu proposamenaren** (5); **edf gdfren estatutu** (4); **eek estatutu** (4); **egindako estatutu** (4); **estatutu aldaketa** (13); **estatutu aldaketaren** (9); **estatutu bat** (17); **estatutu batek** (5); **estatutu baten** (7); **estatutu berri** (39); **estatutu berri bat** (16); **estatutu berri baten** (8); **estatutu berri baterako** (7); **estatutu berria** (65); **estatutu berriak** (37); **estatutu berrian** (5); **estatutu berriaren** (67); **estatutu berriaren inguruan** (4); **estatutu berriaren inguruko** (4); **estatutu berriaren proposamena** (11); **estatutu berriaren proposamenaren** (7); **estatutu berriari** (8); **estatutu berriaz** (8); **estatutu berriei** (4); **estatutu berrien** (8); **estatutu berrirako** (248); **estatutu berrirako egitasmoa** (6); **estatutu berrirako proposamena** (91); **estatutu berrirako proposamenak** (40); **estatutu berrirako proposamenaren** (56); **estatutu berrirako proposamenari** (20); **estatutu berrirako proposamenean** (5); **estatutu egitasmoa** (21); **estatutu egitasmoak** (6); **estatutu egitasmoaren** (11); **estatutu egitasmoari** (4); **estatutu erreforma** (29); **estatutu erreformak** (19); **estatutu erreformarako** (5); **estatutu erreformaren** (13); **estatutu erreformari** (5); **estatutu erreformei** (5); **estatutu erreformen** (6); **estatutu gehiago** (4); **estatutu hau** (5); **estatutu politiko** (38); **estatutu politiko berria** (8); **estatutu politiko berriaren** (13); **estatutu politiko berrirako** (11); **estatutu politikoaren** (4); **estatutu proiektua** (7); **estatutu proposamen** (9); **estatutu proposamena** (144); **estatutu proposamena atzera** (5); **estatutu proposamena eta** (5); **estatutu proposamena eusko** (4); **estatutu proposamena ez** (4); **estatutu proposamenak** (37); **estatutu proposamenak aurrera** (4); **estatutu proposamenarekin** (6); **estatutu proposamenaren** (131); **estatutu proposamenaren aurka** (10); **estatutu proposamenaren aurkako** (4); **estatutu proposamenaren eztabaida** (8); **estatutu proposamenaren eztabaidari** (5); **estatutu proposamenaren inguruan** (10); **estatutu proposamenaren inguruko** (11); **estatutu proposamenaren kontra** (7); **estatutu proposamenaren kontrako** (4); **estatutu proposamenaren tramitazioa** (4); **estatutu proposamenari** (77); **estatutu proposamenari aurkeztutako** (5); **estatutu proposamenari buruz** (11); **estatutu proposamenari buruzko** (13); **estatutu proposamenari dagokionez** (4); **estatutu proposamenari jarritako** (5); **estatutu proposamenaz** (9); **estatutu proposamenean** (7); **eta estatutu** (30); **eta estatutu proposamena** (9); **eta jaurlaritzaren estatutu** (5); **eta kataluniako estatutu** (4); **eusko jaurlaritzak estatutu** (4); **eusko jaurlaritzako estatutu** (15); **eusko jaurlaritzaren estatutu** (195); **eusko legebiltzarrak estatutu** (5); **eusko legebiltzarrean estatutu** (4); **galiziako estatutu** (5); **gasteiz estatutu** (6); **gdfren estatutu aldaketaren** (4); **gobernuak estatutu** (5); **ibarretxek estatutu** (5); **iuk estatutu** (4); **jaurlaritzak aurkeztutako estatutu** (6); **jaurlaritzak estatutu** (6); **jaurlaritzako estatutu** (16); **jaurlaritzako estatutu berrirako** (6); **jaurlaritzako estatutu proposamenaren** (4); **jaurlaritzako estatutu proposamenari** (4); **jaurlaritzaren estatutu** (291); **jaurlaritzaren estatutu berriaren** (8); **jaurlaritzaren estatutu berrirako** (83); **jaurlaritzaren estatutu egitasmoa** (7); **jaurlaritzaren estatutu egitasmoaren** (4); **jaurlaritzaren estatutu proposamena** (50); **jaurlaritzaren estatutu proposamenak** (19); **jaurlaritzaren estatutu proposamenaren** (50); **jaurlaritzaren estatutu proposamenari** (41); **kataluniako estatutu** (27); **kataluniako estatutu berriaren** (6); **kataluniako estatutu berriaz** (4); **kutxaren estatutu** (8); **kutxaren estatutu berriak** (7); **legebiltzarrak estatutu** (6); **legebiltzarrak onartutako estatutu** (8); **legebiltzarrean estatutu** (5); **lehendakariak estatutu** (6); **nafarroako kutxaren estatutu** (7); **nazio estatutu** (5); **onartu zuen estatutu** (4); **onartutako estatutu** (13); **proposatutako estatutu** (6); **pse eek estatutu** (4); **sozialistek jaurlaritzaren estatutu** (4); **valentziako estatutu** (4); **zen estatutu** (4); **zuen estatutu** (23); **zuten estatutu** (4)

alderdiaren estatutuak (5); **autonomia estatutua** (31); **autonomia estatutuak** (8); **autonomia estatutuan** (7); **autonomia estatutuaren** (16); **autonomia estatutuen** (13); **da estatutua** (9); **duen estatutuaren** (5); **dute estatutua** (6); **dute estatutuaren** (5); **eaeko estatutua** (11); **eaeko estatutuaren** (18); **eaeko estatutuaren erreforma** (5); **eaeko estatutuen** (4); **egungo estatutua** (4); **estatutua aldatu** (5); **estatutua aldatzeko** (13); **estatutua are** (7); **estatutua are gehiago** (7); **estatutua bera** (5); **estatutua berritzeko** (11); **estatutua defendatzeko** (4); **estatutua egiteko** (4); **estatutua erck** (4); **estatutua ere** (4); **estatutua erreferendumean** (4); **estatutua erreformatzea** (5); **estatutua erreformatzeko** (39); **estatutua erreformatzeko proposamena** (7); **estatutua espainiako** (7); **estatutua eta** (21); **estatutua eta nafarroako** (4); **estatutua ez** (12); **estatutua garatzeko** (5); **estatutua izan** (4); **estatutua kataluniako** (5); **estatutua konstituzioaren** (4); **estatutua madrilen** (5); **estatutua moldatzeko** (4); **estatutua onartu** (26); **estatutua onartu zenetik** (6); **estatutua onartzea** (5); **estatutua onartzeko** (4); **estatutua onartzen** (5); **estatutua oso** (4); **estatutua osorik** (4); **estatutuak aldatu** (4); **estatutuak aldatzeko** (10); **estatutuak berak** (4); **estatutuak bere** (4); **estatutuak dio** (4); **estatutuak dituen** (4); **estatutuak ere** (7); **estatutuak ere onartu** (4); **estatutuak eta** (18); **estatutuak ez** (16); **estatutuak ez du** (4); **estatutuak jasotzen** (4); **estatutuak lortutako** (4); **estatutuak onartzeko** (5); **estatutuan eta** (5); **estatutuarekin gertatu** (5); **estatutuarekin presoak** (6); **estatutuarekin presoak kalera** (5); **estatutuaren alde** (11); **estatutuaren aldeko** (28); **estatutuaren arabera** (5); **estatutuaren aurka** (10); **estatutuaren barruan** (5); **estatutuaren defentsa** (8); **estatutuaren defentsan** (4); **estatutuaren erreforma** (93); **estatutuaren erreforma aurrera** (7); **estatutuaren erreformak** (10); **estatutuaren erreformarako** (24); **estatutuaren erreformarako proposamena** (5); **estatutuaren erreformarekin** (4); **estatutuaren erreformaren** (27); **estatutuaren erreformaren arteko** (4); **estatutuaren erreformaren inguruan** (7); **estatutuaren erreformari** (13); **estatutuaren erreformari buruzko** (5); **estatutuaren erreformaz** (6); **estatutuaren eta** (10); **estatutuaren gaineko** (5); **estatutuaren inguruan** (12); **estatutuaren inguruko** (14); **estatutuaren kontra** (7); **estatutuari bai** (4); **estatutuari buruz** (13); **estatutuari buruzko** (34); **estatutuari buruzko erreferenduma** (5); **estatutuari buruzko eztabaida** (4); **estatutuen aldaketa** (6); **estatutuen arabera** (7); **estatutuen erreforma** (14); **estatutuen erreformak** (17); **estatutuen erreformen** (5); **estatutuen eta** (4); **estatutuetako bi** (4); **eta autonomia estatutua** (5); **eta autonomia estatutuen** (5); **eta eaeko estatutuen** (4); **eta estatutua** (25); **eta estatutuak** (22); **eta estatutuaren** (29); **eta estatutuaren erreforma** (5); **eta estatutuen** (13); **eta estatutuen erreformak** (4); **eta gernikako estatutua** (9); **eta gernikako estatutuak** (8); **eta gernikako estatutuaren** (5); **eusko jaurlaritzak estatutuaren** (4); **ez da estatutua** (4); **gernikako estatutua** (105); **gernikako estatutua erreformatzeko** (9); **gernikako estatutua eta** (4); **gernikako estatutua onartu** (9); **gernikako estatutuak** (54); **gernikako estatutuak bere** (4); **gernikako estatutuak eta** (4); **gernikako estatutuak ez** (4); **gernikako estatutuan** (12); **gernikako estatutuarekin** (4); **gernikako estatutuaren** (97); **gernikako estatutuaren alde** (4); **gernikako estatutuaren aldeko** (5); **gernikako estatutuaren erreforma** (16); **gernikako estatutuaren erreformaren** (6); **gernikako estatutuari** (7); **gernikako estatututik** (6); **jaurlaritzak estatutuaren** (5); **kataluniako estatutua** (64); **kataluniako estatutua erck** (4); **kataluniako estatutuarekin** (8); **kataluniako estatutuarekin gertatu** (5); **kataluniako estatutuaren** (56); **kataluniako estatutuaren erreforma** (9); **kataluniako estatutuaren erreformarako** (4); **kataluniako estatutuari** (18); **kataluniako estatutuari buruz** (6); **kataluniako estatutuari buruzko** (10); **konstituzioa eta estatutua** (16); **konstituzioaren eta estatutuaren** (7); **konstituzioaren eta estatutuen** (7); **langileen estatutuan** (4); **moncloako estatutua** (7); **nuriako estatutua** (4); **onartutako estatutua** (6); **politikoa eta estatutuak** (4); **valentziako estatutuaren** (6); **zuen estatutua** (10); **zuen estatutuaren** (5); **zuen gernikako estatutuaren** (4); **zuten estatutuaren** (7)

---

estatutxo *iz adkor* estatu txikia.

Egoki ahal baita eta zuzen, Jainkoaren herriak izan dezan, ez estatu arteko **estatutxo** baten itxura, baina bai estatu guztien azpitik edo gainetik elkartzen dituen herri ezberdin baten antza. Piarres Xarriton

---

estatuzale *iz/izond* estatuaren aldekoa.

Orduz geroztik badirudi, ez dutela konponbiderik aurkitu ahal izan ez euskaldunek, ez espainolek, beren **"estatuzaleen"** eta "naziozaleen" artean. Piarres Xarriton

Mendiz-hainditarra zen, bihotzez Erromazalea, gaizki heltzen zena Felipe II.ak Espainian sustatzen zituen joera erregezale eta **estatuzaleekin**. Piarres Xarriton

Ekonomikoki arazo handi bat dauka zeren bera oso **estatuzalea** da horretan, eta hori gaurko munduan lekuz kanpo dago. Pako Aristi

---

estatxa *iz* arpoiari lotzen zaion soka luzea; itsasoan arrantzaleak erabilten duen soka.

Hondarrez beteta du urazpia eta ez du horrek **estatxarik** jartzeko aukerarik ematen. Berria - Kirola

Kostatu egiten zitzaien ontziei **estatxaren** laguntzarik gabe lerrokatzea, eta haizea zuten joka, gainera, aldamenetik. Berria - Kirola

---

estaziño ik **estazio**.

estazio *(orobat **estaziño** g.er. eta **estazione** g.er.)* **1** *iz* geltokia, eskuarki trenena.

Atxuriko **estazioko** eraikin iluna. Joseba Sarrionandia

Makinistak **estazioen** izenak esatera behartzen dituzte, loak har ez ditzan. Harkaitz Cano

Guk egin genuen ihesik luzeena **estaziora** joatea izan zen, eta han nire anaiak tren ordutegi guztiak irakurri zituen eta gero etxera itzuli ginen isil-isilik. Pello Lizarralde

Estazioko andenetatik ez zuen bagoien gurpilik ikusten baina handik bai; pribilegiatua zen han. Unai Elorriaga

Mesie Ezmonsieur ez zegoen **estazioko** nasan eta trenean eserita egongo zen ordurako. Joseba Sarrionandia

Biharamunean lauretako trena hartu zuten **estazioan**. Pedro Alberdi

Estazioan zamak eta paketeak eramaten diru pixka bat irabazten zuen. Gotzon Garate

Beti zagok bihotz zatitu bat erdiz trenean doana eta erdiz **estazioan** geratzen dena, baina, trena infernurantz zoak beti. Patziku Perurena

Neskak zeremonia eta espantu handiekin hasi ziren jaisten, hainbesteko beldur aurpegiarekin non ematen zuen **estazio** bateko kaira ez, baizik malkortegi arriskutsu batera amiltzen ari zirela. Matías Múgica

Estazioaren aurreko zabalunean, bidaiari zain, dilijentzia maila iristen ez zuen "carruaje" txiki mordoska bat topatu dugu, lauzpabost. Txillardegi

Gizona berrogeita hamar bat metro haratago gelditu da, **estazioko** almazenaren ate ondoan. Pello Lizarralde

Errebisorearekin eta **estazioko** zaindariarekin ibili behar duk kontuz. Harkaitz Cano

Estazioko langilea atea bulkatu bezain laster baztertu da, eta bi zaplada eman dizkio bizkarrean Lainezi honek kanpora egin duenean. Pello Lizarralde

Estazio ondoko kaleak ondo ezagutzen zituen: Juanen okindegia, izeko Pilarren etxea (izeko Pilarren zopa), plaza. Unai Elorriaga

Azaroaren 27an, arratsaldeko 8etan, manifestaldia Iruñean, abiatzea autobusen **estazioan**. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estazio berria txikiagoa zen eta han ez zen hainbeste tren geratzen. Harkaitz Cano

Hiria behar baitu hain **estazio** ederra daukanak. Unai Elorriaga

Estazio beltz batera sartu zen trena. Unai Elorriaga

Estazio printzipala zen tailerra ere bazeukalako. Trenak konpontzeko-eta. Unai Elorriaga

3 (hitz elkartuetan)

Bazkalondoan, etxeko leihotik tren **estaziorantz** begiratu eta frantsesezko irakaslea ikusi zuen, Mesie Ezmonsieur Bilborako trenaren zain zegoen. Joseba Sarrionandia

Senitartekoren batek loreak jarriko ditu metro **estazio** ilunean. Harkaitz Cano

Biharamunean arratseko bederatzietan bus **estazioan** nago: 70 kordoba ordaindu dut Managuatik El Ramara autobusa, 120 kordoba El Ramatik Bluefieldsera panga. Joseba Sarrionandia

4 neguko kirolak egiteko instalazio multzoa.

-Gauza bera erran huen iaz, Baqueirako **estazioa** handitzearen kontrako ekintzan. Aingeru Epaltza

Lasterketa hilaren 31n bukatuko da, Kataluniako La Molina **estazioan**. Berria - Kirola

Itoitz egin ahal izateko egin zuten lege berria berriro aldatu dute Larrako Naturgunean eski **estazioa** egin ahal izateko. Edurne Elizondo

Aspen inguru horretan, eski **estazioetarako** bide seinaleak bezala, "Gold mine" diotenak nabarmendu dira. Patxi Zubizarreta

Larra-Belagua elkarteak ez du eremu horretan egin nahi duten eski **estazio** proiektu berriaren aldeko iritzirik. Berria - Euskal Herria

Estazio ertainetan Sandroren erreinua eskalada-entrenatokiak ziren. Juan Garzia

5 zientzia ikerketarako instalazio multzoa.

Egun, bi astronauta soilik daude **estazioan**. Berria - Gaiak

Laborategiak osatzeko, gutxienez 45 bidaia egin behar ziren Lurretik **estaziora**. Berria - Gaiak

Neurriak **estazio** metereologikoek eta EAEko Osasun Sailak koordinatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Europak espazioko **estazioan** jarriko duen laborategia aurkeztu dute. Berria - Gaiak

XXI. mendearen amaiera aldera Marte inguruko **estazio** espazialera iristen da Xarmanta doktorea. Berria - Kultura

Normalean automatikoki egiten da espaziontziaren eta ISS **estazio** orbitalaren elkarketa. Berria - Gaiak

Vostok **estazioan** 3.600 metro zulatuta zeuzkatenean, ustekabea izan zuten errusiarrek: sakonera horretatik ateratako izotza ez zen mila urteko presioak gogorturiko azaleko elurra, baizik eta urtu eta berriz izozturiko ura. Berria - Gaiak

Flixetik beherako uraren kontrolerako **estazioetan** ez dute gaur artean inolako anomaliarik sumatu. Berria - Gaiak

Doñanako **Estazio** Biologikoak ere hartu zuen hitza Itoizko aferan, eta urtegia faunarentzat "oso kaltegarria" izanen zela azpimarratu zuen. Edurne Elizondo

2003ko abuztuaren 14an, metro kubiko bakoitzeko 197 mikrogramo ozono troposferiko neurtu zituen Tuterako **Estazio** Atmosferikoak. Berria - Euskal Herria

Estatu unibertsalen hiriburuak **estazio** egokiak izan ziren, noski, mota guztietako kultur eraginak zabaltzeko. Iñaki Mendiguren

6 (hitz elkartuetan)

Nazioarteko Espazio **Estazioa** (ISS) 2010erako amaituko dutela agindu zuten. Berria - Gaiak

Sergei Krikaliov Errusiako astronauta, Mir espazio **estazioan** zegoen Sobiet Batasuna desegin zenean. Berria - Kultura

Zientzia **estazioa** zegoen izotz puska asteazkenean apurtu zen eta ikertzaileak osorik zegoen izotz zatian babestu ziren. Berria - Gaiak

Hornitzeko bideak trabatu dizkie izozmendiak McMurdo badiaren inguruan dauden hiru ikerketa **estazioei**. Berria - Gaiak

Bildutakoa neurketa **estaziora** bideratzen da, eta han konposizioa, tenperatura, presioa eta emaria neurtzen dituzte. Berria - Euskal Herria

Gizartearen Metereologia **Estazioa** erakunde behatzaileak azken partea eman zuen: Manilan bozen %31 irabazi ditu Arroyok eta %23 Poek. Berria - Mundua

7 irud/hed

Estatu unibertsalen hiriburuak **estazio** egokiak izan ziren, noski, mota guztietako kultur eraginak zabaltzeko. Iñaki Mendiguren

Lumaren eremuan gurutzatuek Sirian egindako aldi bateko konkistak eta, are gehiago, Sizilia eta Andaluziako konkista iraunkorragoak Dar-al-Islam-en bizkar, beste horrenbeste transmisio-**estazio** bilakatu ziren, hauen bidez komunikatu zitzaizkiolarik Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeari hilzorian zegoen mundu siriakoko altxor espiritualak. Iñaki Mendiguren

Irrati **estazioa**: Londres, New York, Tel Aviv eta hiriburu handi batzuekiko zuzeneko loturekin. Josu Zabaleta

Ez dakit zergatik baratzen zen panpinak, plastikozko dinosauroak eta orbita-**estazioak** aurkezten zituzten apal haiek begiratzera, inoiz ez bainuen dendan sartzen ikusi. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eski estazioa (7); **eski estazioa egiteko** (3); **eski estazioan** (27); **eski estazioan bukatu** (3); **eski estazioan bukatuko** (6); **eski estazioaren** (8); **eski estazioetan** (3); **eski estaziora** (4); **espazio estazio** (3); **espazio estazioa** (9); **espazio estazioan** (14); **espazio estazioaren** (4); **espazio estazioko** (13); **espazio estazioko astronautak** (3); **espazio estaziora** (11); **espazio estaziorako** (5); **espazio estaziorako bidean** (4); **espazio estaziotik** (4); **estazio batean** (4); **estazio horiek** (3); **estazioa egiteko** (3); **estazioan bukatu** (3); **estazioan bukatu zen** (3); **estazioan bukatuko** (6); **estazioan bukatuko da** (5); **estazioaren ondoan** (3); **estazioko astronautak** (3); **estazioko astronautek** (3); **estazioko eraikin** (3); **estazioko langileak** (3); **estaziorako bidean** (4); **eta estaziora** (3); **eta estaziotik** (3); **larrako eski estazioaren** (4); **larran eski estazioa** (3); **metro estazio** (3); **nazioarteko espazio estazioa** (7); **nazioarteko espazio estazioan** (12); **nazioarteko espazio estazioaren** (4); **nazioarteko espazio estazioko** (9); **nazioarteko espazio estaziora** (8); **nazioarteko espazio estaziorako** (4); **nazioarteko espazio estaziotik** (4); **tren estazio** (4); **tren estazioan** (7); **tren estaziotik** (4)

estazioburu *iz* estazio bateko burua.

Zirrara eragin zidan irudi hark: horma erorien artean, gabardinak ukigabe zirauen, **estazioburua** iristear balego bezala. Harkaitz Cano

Estazioburuaren txilibitua hartu eta txistu egin nuen indar biziz. Harkaitz Cano

Lastima **estazioburuaren** kapelua ez ekarri izana merezi zuen jendearen aurrean sonbrailua edukazioz kentzeko. Harkaitz Cano

Estazioburuaren bulegoa iraganda hurrengoaren aurrean gelditu da istant batez, bizkarra emanda, begiak trenbidera eta haratago diren baratze aldera eginik. Pello Lizarralde

---

estazione ik **estazio**.

---

este *iz* ekialdea.

Orduan, neska kiowa hori bahitu egingo dute, batek alaba egin nahi duelako eta besteak halabeharrezko emazte duelako, ea ezari ezarian ematzen eta hezten den, **Estekoa** balitz bezala. Joseba Sarrionandia

Eta oinez joango dira desertuan barrena biak, **Esteko** dotorezia guztiak atzean utzi dituen andrea eta iragan mingarriko mutila, biak nekatuta, eta kantinplorak ere egarria izango du harik eta errekara ailegatu diren arte. Joseba Sarrionandia

---

esteatohepatitis *iz* gibeleko gantz hantura.

Zer da esteatosisa, zer hepatitisa eta zer **esteatohepatitisa**? Berria - Gaiak

Gibelean koipe edo gantz gehiegi pilatu eta organo hori handitzen denean, berriz, **esteatohepatitisa** da. Berria - Gaiak

Zeri deitzen zaio **esteatohepatitis** ez-alkoholikoa? Berria - Gaiak

Ba al dago **esteatohepatitisaren** kontrako tratamendu eraginkorrik? Berria - Gaiak

Gerta daiteke **esteatohepatitisa** duen pertsona batek zirrosirik ez garatzea. Berria - Gaiak

---

esteatosis *iz* gibelean gantza izatea.

Zer da **esteatosisa**, zer hepatitisa eta zer esteatohepatitisa? Berria - Gaiak

Esteatosisa, labur esanda, gibelean gantza pilatzeari deitzen zaio. Berria - Gaiak

Izan daiteke gibela handitzea eragin duen **esteatosis** arrunt bat. Berria - Gaiak

Oso zaila da **esteatosis** alkoholikotik bereiztea neurriz kanpoko alkohol kontsumoak eragindako gantz pilaketa. Berria - Gaiak

---

estegosauro *iz* dinosauro mota belarjalea, isatsean arantzak zituena.

Estegosauro baten eta dinosauro haragijaleen aztarnak ere aurkitu ditugu, besteak beste. Berria - Gaiak

---

esteialdu, esteial(du), esteialtzen du *ad* ondasunez eta kidekoez mintzatuz, alferrik galdu.

Hartzen baititu ondoren armak bertzeen hiltzeko, nola gertatu izan baita Europako lurrak urte luzeetan hondatu eta **esteialdu** izan dituzten gerla erlijionezkoetan. Joan Mari Irigoien

---

esteka *iz* lokarria.

Gerrikoaren **esteka** zilar finezkoa zen. Juan Garzia

Batzuk sabaiko ogi ezpalez behar zuten mekanika ase, ganibet ukaldika hirugarren batek **estekak** moztuz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ene **estekatik** askatu zuen Xaxi eta bere besoetan kuttunki gatibatu. Itxaro Borda

Motzago heltzen dio **estekatik** dobermanari. Oskar Arana

Ezti eztia bere **estekatik** mugitu baino lehen gure untzia, senditua ginuen sua piztua zutela beherean, barneko labe heietan gure mariñelek, urrunetik etorri burrunba mutu hura lekuko. Herria

Etxolamendiko Ganixen ahuntzaren gisa, **esteka** hautsirik nahiago dugu libroki ibili, gure nortasun osoa eginahala begiratuz, otsoaren ausikiak jasan behar balin baditugu ere. Herria

Jantoki hutsaren erdian, ahi nazkagarriaren usaina zerion lapikotik gertu zegoen Esteban, buruan oihal-**esteka** eta balak kraskatu zion bular-kaxaren gainean oihal-**esteka**, beso bat ere igeltsatuta zuela. Harkaitz Cano

2 lotura.

Garrantzizkoa da ingurumarietan gertatzen diren gorabeherak garunari jakinaraztea, eta oso ondo egiten da hori bizkar-muinaren goiko eta beheko **esteken** bidez. Irene Aldasoro

Baieztapena, hala ere, oihuka ari nintzela alegia, hain zen funtsik gabea, ez baitzitekeen eldarnio bat baizik, bizi ninduen lokamutsaren atal berantiar bat, errealitatearekin inolako **estekarik** ez zuena. Aingeru Epaltza

Eta azkenean **esteka** gaxto guziak trenkatu zituen. Xipri Arbelbide

Maiana eskalearen besoen **estekatik** eskapatzen saiatu zen. Itxaro Borda

3 irud/hed

Garrantzizkoa da ingurumarietan gertatzen diren gorabeherak garunari jakinaraztea, eta oso ondo egiten da hori bizkar-muinaren goiko eta beheko **esteken** bidez. Irene Aldasoro

4 (informatikan)

Amaraunean dauden testuen bilduma egin dute, azkenik, **esteken** bidez. Berria - Kultura

Zubitegia-n bertan testuak jartzea baino egokiagoa iruditu zaigu testu horiek dauden lekuetara zubiak eraikitzea; hau da, Interneten dauden guneetako informazio guztia Zubitegia-n txertatu beharrean, **esteken** bidez biltzea. Berria - Kultura

Esteka horretan klik eginda, beste web orri batera salto egiten du erabiltzaileak,benetako erakundearen antzeko web batera. Berria - Gaiak

Berton, kronologikoki azaltzen dira norberak sarean jartzen dituen informazioak, iritziak, artikuluak eta **estekarik** interesgarrienak. Txema Ramirez de la Piscina

Zalantza egin eta ez fidatu: Mezuari susmo txarra hartzen badiogu, eta zalantza badugu, ez sakatu **esteketan**. www.smsariketa.org webgunean, lehiatzeko aukera emateaz eta lehiaketari buruzko informazioaz gain, beste hainbat atal ere eskaini dituzte: sakelako telefonoetarako hiztegia, foroa, **estekak**... Berria - Gaiak

5 *estekan adlag*

Itsas aldetik haizea indartsu zetorren, Ti Kern egoitzaren inguruko belardiak plega araziz, ibili zabiltzan jendeen bizkarrak makurtuz eta **estekan** atxikitzen zituzten ardien buruak ezker-eskuin, auhenez astinduz. Itxaro Borda

Ez gira segurik **estekan** atxikitzen diren horietarik. Herria

Ez gaitzala nigarrak atxiki **estekan**. Herria

Jendarmeei armak, uniformea eta irratia kendu zizkieten, **estekan** ezarri aitzin. Berria - Euskal Herria

Egun hartan Irfan Karakaz, jite kurdiarreko turkiarra, oinak eta eskuak **estekan** eraman zuten hegazkin batetara. Herria

Zaldi tropa bat behar zuten mugaz bestaldera pasarazi eta Pettan zen besteak baino aitzinago joana, zaldi bat kordatik **estekan**, miatzaile edo espiun gisa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ortzaiz ibarreko biztanle ausart zenbait ibili zirela New Yorken hartza lepotik **estekan** erakutsiz. Itxaro Borda

Badun **estekan** atxikiko hauen bizi bati uko egiteko askatasuna. Eneko Bidegain

Estekan eduki uste duzu zeure kateetan! Jon Muñoz

Hiru egunez bilatu zituztelakotz, hiru egunez **estekan** egon behar zuten kanpoan, urkatu aitzin. Marzel Etxehandi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estekan atxikitzen (4); **esteken bidez** (3)

---

estekadura *iz* lotura.

Algeriak badu orain bere "liburu beltza", muga gabeko kasetariek atera dutena eta herri horren **estekadurako** hameka urte dorpe eta gogor aipatzen dituena. Herria

Egun batez, sukarri baten zorrotza baliaturik, **estekadurak** hautsi nituen. Juan Garzia

Lege zibil berri horrek, esana dugu, aurreko **estekadurak** ebaki ditu. Andres Urrutia

Argi ikusten da hori, herritarrak lotzen dituzten **estekadura** kontaezinak aintzat hartzen badira. Andres Urrutia

Nolanahi ere, litekeena da, horrezaz gain, eta ikurrak lotuak dauden **estekadura** arbitrarioarengatik, adierazleen eta adierazien arteko lerraketak izatea. Isabel Arrigain

---

estekari *iz*

Hator arratsaldean nire lantegira lasai, bitetan gozo lotzeko aginduko zieat **estekariei**, sabela irekitzeko aginduko zieat gero, hago geldi manatuko diat, sufriarazi gabe irekiko haute alderik alde nik neure kakoa neure koilara neure olagarroa sartu ahal izan dezadan heure haragian. Koldo Izagirre

---

estekatu, esteka(tu), estekatzen **1** du *ad* lotu.

Jonen atorrean mikro tipi bat **estekatzen** ari zen, elkarrizketa grabatzeko gisan. Ramuntxo Etxeberri

Goizetan ardiak landara gidatzen zituen eta eskolarik ez zuen egunetan, anai-arrebekin bat, aihena **estekatzen** zuen, lerroz lerro eta lairaz laira. Itxaro Borda

Buruz beheiti ezarri eta zangoak **estekatu** dizkie. Xabier Montoia

Arkumeak daramatzate bizkarrean, ahuntzak lokarriez **estekatuak**. Xabier Montoia

Eta baratzea artoski artatzen zuen, arratsalde osoak han iraganez, hau landa, hura jorra, hemen zurkaitzak ezar, hantxe tomateak **esteka**. Daniel Landart

Jamesek Maisie beso batetik **estekatu** zuen eta bere ama bestetik. Lopez de Arana

Orgara **estekatu**, herrestan eraman urkamendiraino, eta handixek eskegi zuten. Juan Garzia

Ez, jauna, lehorrean baratzen naiz; maite ditut lehorrera **estekatzen** nauten loturak. Jon Muñoz

Tomasek "Lisboako" barrari **estekatua** aurkitu ninduen hiru ordu geroago. Aingeru Epaltza

Mutikoek eskuak eta zangoak sokaz **estekaturik** zeuzkaten. Itxaro Borda

Belaunaldiak bata bestearen ondoan doaz, eta elkarrekin dira nahasten, **estekatzen** eta bateratzen. Andres Urrutia

2 (adizlagunekin)

Behin kupelak han, guri zegokigun hurrengo zeregina; upel bakoitza sokaz ondo **estekatu** ostean, Mateok berak emango zuen hura gora iragotzeko agindua. Kala ttipi batean lehorreratzea erabakirik, ontzia harkaitz artean gorde eta ahal bezain ongi **estekatu** zuten. Edorta Jimenez

Oilo-ipurdia egin zitzaidan: emakumeak lehengo eguneko zapata takoidunak zeramatzan, sobera finki **estekatutako** albornoz marradun lodiaren azpian. Aingeru Epaltza

Jakituria gutxikoa litzateke, irrista beldurgarrien erresuman sartuta, laburregi jokatzea eta seme-alaben erabakia eta gurasoen zuhurtzia fermuki **estekatzen** dituen denbora laburtzea. Andres Urrutia

Bertan, gizon bat eta emakume bat biluzik ageri ziren, itsas suge batek indarrez **estekaturik**. Lopez de Arana

3 (era burutua izenondo gisa)

Kaletik azantz isil batek gora egin zuen kiribilka eta hormak zeharkatu zituen, itzal **estekatuak** taupadaka jarriz. Lopez de Arana

Bere oin **estekatuak** mugiarazi zituen Hadrumeteko karriketan barrena. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
batez estekaturik (3); **bati estekaturik** (6); **estekatu eta** (6); **estekatu zuen** (4); **estekatua eta** (3); **estekaturik egon** (3); **estekatzen zuen** (3)

---

estekatze *iz* lotzea.

Ofizialtasunak sano laguntzen du **estekatze** mentaletan, eta nago gobernuen eta armaden kasuan lotura zuzenagoa egiten dugula kultura albisteetan baino. Iñigo Aranbarri

---

estekiometriko *iz* erreakzio kimiko batean erreaktiboen erlazio kuantitatiboen kalkuluari dagokiona.

Zera zen kontua, kalkulu **estekiometriko** elemental bat egin, eta zink ale-xehekatuari aurrez uretan disolbaturiko azido sulfurikoz erasotzea; kontzentratu, kristalizatu, ponpaz xukatu, garbitu eta birkristalizatzea. Juan Garzia

---

estela *iz* lorratza.

Badian barrena zebiltzan ontziek **estela** zurixkak uzten zituzten urazal leunean. Bernardo Atxaga

Hegazkin bat zeruan azaldu zen atzean **estela** bat uzten zuela, eta zeru hartan bertan eguzkia sartzeko zorian zegoen. Bernardo Atxaga

NASAren kapsulak zortzi minutu egin zituen kometaren **estelan** eta hark utzitako partikulak ere jaso zituen. Berria - Gaiak

Ordu horretan, asteroideak utzitako gas eta hautsezko **estelan** sartu zen eta bertan, kometaren gunetik 300 kilometrora, mantendu zen zortzi minutuz. Berria - Gaiak

Beste ur batzuetan ere, nire oroimenekoetan, zerbait pasa zen, oso arin, leihotik ikusten nituen **estela** haiek baino arrasto are arinagoa utziz, eta Steve McQueen, Papillon, ikusi nuen Euskal Herriko hiri batean, Ali McGrawrekin eskutik helduta zihoala, euripean baina euriaren ardurarik gabe. Bernardo Atxaga

2 oroitarria.

Baditugu lau iturri akitaniera eta mintzo hori zuten akitaniarrak ikertzeko: leku izenak, idazle klasikoak (greko eta erromatarrak), harrizko **estela** idatziak, eta oraingo mintzaira bat: gaskoia, okzitaniar mintzairen taldean sartzen dutena. Herria

Oraingo Euskal Herriko Iparraldean, baditugu garai bereko bi **estela**. Herria

Aita Donostiari eginiko Aginako **estela** ere bertan egin zuen, eta baita cromlecha estudiatu ere. Berria - Kultura

Pieza garrantzitsuak ugari dira, baina Zaldizkoaren **estela** izenekoa da nagusi. Berria - Kultura

---

estelar 1 *izond* berebizikoa.

Aulkien Historiako une **estelarrak**. Harkaitz Cano

2 *iz* hoberenen arteko pilota partida.

Baten faltan bi **estelar** edo partida nagusi jokatuko dira gaur arratsaldean Hernaniko Galarreta frontoian. Berria - Kirola

Beteranoek irabazi zuten atzo arratsaldean Tolosako Beotibarren jokatu zen **estelarra**. Berria - Kirola

Tolosako **estelarra** Titin-Barriolak irabazi zuten, aise, Xala-Goñi III.aren kontra (22-7). Berria - Kirola

Gazteak eta zailduak nahastuta, gaur, Galarretako **estelarrean**. Berria - Kirola

Jaialdiko **estelarrean** Titinek eta Barriolak, Xala eta Goñiren aurka jokatuko dute. Berria - Kirola

Matxinek eta Juaristik ez dute **estelar** handi asko jokatzeko paradarik izan, eta astearteko jaialdiak erakusleiho egokia direla ondo dakite. Berria - Kirola

Ezkurra-Auzmendi eta Zeberio-Eizagirre; **estelar** galanta gaur, Galarretan. Berria - Kirola

Gaurko jaialdi horretan, **estelar** polit bat ere jokatuko da. Berria - Kirola

Goi mailako **estelarra** antolatu du Remonte 2000 enpresak gaur arratsalderako, Hernaniko Galarreta frontoian. Berria - Kirola

Bigarren **estelarra** ere dotorea da, itxuraz: Zeberio II.a-Urko eta Altuna II.a-Etxabe. Julen Gabiria

---

estenografia *iz* takigrafia.

Estenografoek hartutako ohar eta elkarrizketa asko iristen dira erredakzioetara eta ez dago denborarik hizkera alfabetikora aldatzeko, tipografo on batek **estenografian** jakin beharra dauka. Koldo Izagirre

Baina halanbe **estenografian** hartu nuen. Koldo Izagirre

Estenografiazko ohar bakan batzuk baino ez zituzten ageri. Koldo Izagirre

---

estenografo *iz* estenografian aritzen den pertsona.

Estenografoaz baliatu ginen haizeak gure jarduna eraman ez zezan, eta ez nuen hizkirik ere galtzen utzi. Imanol Unzurrunzaga

Estenografoek hartutako ohar eta elkarrizketa asko iristen dira erredakzioetara eta ez dago denborarik hizkera alfabetikora aldatzeko, tipografo on batek estenografian jakin beharra dauka. Koldo Izagirre

Trinity Church-eko hilerrian zenbait **estenografo** eta bulegari otartekoak jaten ari ziren hobien artean. Lopez de Arana

---

estenosi *iz* hodi baten estugunea.

Txagorritxun probak egin, eta aortako **estenosia** duela esaten diote. Berria - Euskal Herria

---

estenotipista *iz* makinaz estenotipian idazten duen pertsona.

Ahotsen arabera ebaztekotan, Clevelandeko **estenotipista** haiek ere izan zitezkeen lasai asko. Joxe Austin Arrieta

Jende-mota ororekin solastatzen nintzen, gehientsuenetan mister Lewinekin, eta ez Sabethekin bakarrik: esate baterako, mahaikide nituen Clevelandeko **estenotipista** neskazahar Europa bisitatzeko premia hertsia sentitua omen zuten haiekin ere mintzatzen nintzen; eta Chicagoko apaiz baptista harekin ere bai, tipo jator askoa bera. Joxe Austin Arrieta

---

estensio ik **estentsio**.

---

estentsibo 1 *izond* estentsioan oinaritzen dena.

Ezin dugu produkzio intentsiboa erabiliz ekoizkina lortu, eta produktu **estentsiboa** eta ohiturazkoa balitz bezala iragarri. Berria - Ekonomia

Hazkundea, **estentsiboa** izatetik, intentsiboa izatera igaro zen, eta gizartearen sektore zabalagoei gertatu zitzaien onuragarri. Koro Navarro

Lau borrokaldi horietako bakoitza **estentsiboagoa**, bortitzagoa, suntsigarriagoa izan zen, material eta moralki, bere aurrekoa baino. Iñaki Mendiguren

2 laborantzaz mintzatuz, lur eremu zabaletan oinarritzen dena.

Hartza dagoen tokian animaliak izateagatik 3.000 eta 9.000 euro arteko kopurua jasotzen dute abeltzaintza **estentsiboa** egiten dutenek. Berria - Euskal Herria

Ez da lehen aldia laborantza **estentsiboak** tokian tokiko ingurumenari egiten dion kalteaz ohartarazten dutela. Berria - Gaiak

Ura garbitzeaz gain, lortutako lokatzarekin elektrizitatea, laborantza **estentsiborako** ongarria eta lorategietan baliatzeko konposta sortzen dute Arazurin. Berria - Euskal Herria

---

estentsio *(ETCn **257** agerraldi; orobat **estensio** ETCn **11** agerraldi)* 1 *iz* kontzeptu bati aplikatzen ahal zaion banakoen multzoa.

Termino singular baten **estentsioa** berorrek denotatzen edo erreferitzen duen objektua da; predikatu baten **estentsioa** berorrengan biltzen diren objektuen multzoa da; perpaus baten **estentsioa** berorren egia-balioa da. Askoren artean

Mundu posibleen semantikak Fregeren zentzu kontzeptuaren pareko den bat darabil: termino singular batek edo predikatu batek **estentsio** bat eta intentsio bat (edo "zentzu" fregear bat) dauzka. Askoren artean

2 irud/hed

Royal-eko Logika deritzanaz baliatuko gara pixkatean, eta oroituko nola bereizten zituen hark ideien *comprehénsion* edo, geroagoko izenez, intensioa (ideiak bere baitan hartzen edo biltzen dituen tasun edo ezaugarrien multzoa), eta *étendue* edo **estensioa** (ideia aplika dakiekeen gauzen multzoa); ideia batek zenbat-eta intensio eskasagoa, orduan-eta **estensio** handiagoa du, eta, alderantziz, intensioa ugariagoa eta **estensioa** urriagoa; gauza hitzak intensio eskasa du (oso ezaugarri gutxi ditu bere baitan edo izaeran) eta **estensioa** berriz oso handia, ia edozeri aplika baitakioke; aitzitik, borragoma hitzak intensio handiagoa du (ezaugarri asko behar ditu definitua izateko) eta **estensioa**, jakina, hagitzez urriagoa. Iñaki Segurola

Azpeitiko partean, Bizkaiko partean, Frantziako partean, etc. diogu, baina ez, nik uste, euskal herriko partean -edo, beheragotik harturik, Nuarbeko, Itziarko... partean-, funsgabeko izendatze goitar batek erabakitako **estensio** jakin zedarriturik ezaren seinale. Iñaki Segurola

---

estentsional *(corpusean **estensional** soilik) izond* estentsioari dagokiona.

kasik harritzeko gauza baita, izanik ez goietatik ezarritako izen politiko edo **estensional** bat, baizik-eta erakundeen, boterearen, kulturaren eta mapen munduarekin deus ikustekorik gabea. Iñaki Segurola

---

estepa 1 *iz* muturreko klimetan hazten diren belar mirrinez osaturiko zabaldia.

Iluntasun beltzak bildu zuen **estepa** gauerdian. Karlos Zabala

Garaiko espiritu nagusi honek "eroankortasunez" hornitzen ditu estatu unibertsalak sortarazitako behin-behineko erakunde berri hauek, ozeanoak eta **estepak** [...] dutenarekin parekagarria. Iñaki Mendiguren

Gure herrialde honetan handitasun mugarik gabea nahiago baitute gauza guztiek, hala mendiek, oihanek eta **estepek**, nola aurpegiek, ezpainek eta oinek. Jose Morales

Abere bakar bat ere ez **estepan**. Karlos Zabala

Oihana aspaldi izan zen altzairuaren biktima, eta **estepan**, berriz, sartuak ziren automobila eta hegazkina. Iñaki Mendiguren

-Zenbat aldiz zeharkatu duk **estepa** neguan? -galdetu zuen gazte livoniarrak. Karlos Zabala

Soyuz TMA-3 espaziontzia atzo goizaldeko 04:11etan lurreratu zen Kazajistango **estepetan**, «arazo barik». Berria - Gaiak

Gizona ozta-ozta ausartzen da Siberiako **estepetan** edo Asiaren erdialdeko lautadetan barneratzen. Karlos Zabala

Tatariarren andanak zabiltzak **estepetan** zehar batetik bestera! Karlos Zabala

Gizon bat **estepan** barrena bakarrik; tsarraren mandataria dela aise kontura daitekek norbait. Karlos Zabala

Lasterka joan nahi zuen **estepan** aurrera. Karlos Zabala

Arbaso haien ondorengoak zirela orain Feofar Khanen askonahiak kirgizen **estepetan** barrena bultzatzen zituen gerlariak. Karlos Zabala

Maiz ikusi dinat Siberiako **estepetan** tenperatura zero azpitik berrogei gradu erortzen! Karlos Zabala

Siberiarantz oldartu da, kirgizen **estepetarantz**, eta han saiatu da, eta ez arrakastarik gabe, herri nomadak. Karlos Zabala

Ipar Arabiako **estepetatik** Siriako landa eta hirietara. Iñaki Mendiguren

Estepako otsemearen orroaren deiak bihotza erdibitu zion. Itxaro Borda

Mongoliako **estepetako** artzainak. Itxaro Borda

Txekhovek zioen Errusiaren arima **estepako** bakardade harrigarrian aurkitzen dela, eta amaierarik ez duen paisaia hori, mehatxuz betea, konkistaezina dena, esaldi luzeen bidez baino jasotzerik ez dagoela. Berria - Kultura

Halako batean ahalegin guztian oldartzen zaio erbiari, nahiz eta **estepa** elur bigunez estaliak bizkor ibiltzea eragozten dion. Jose Morales

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bakarrik geratu ziren, babesik gabe, **estepa** handian harat-honat. Felipe Juaristi

Oztopo gutxiago aurkitzen dira elurrak berdinduriko **estepa** neurrigabe horietan. Karlos Zabala

Novo-Saimsk atzean utzi bezain laster, **estepa** mugagabea hasten zen, eta Krasnoiarskeko inguruetaraino zabaltzen. Karlos Zabala

Ozta-ozta ikusten zituen begien aurrean igarotzen zitzaizkion **estepa** luze-zabal haiek, istant batez galaraziak izan zituenak. Karlos Zabala

Leihotik begiratu eta otso talde bat ikusten dudanean **estepa** izoztuan lasterka, haietako bat zarela bururatzen zait, eta nigana zatozela aldi hartan etorri zinen bezalaxe. Bernardo Atxaga

Estepa gorrian beste edozein gizaki izoztuko zen gauez goian zerua eta behean lurra; hark, ordea, aterbea egin eta hantxe egiten zuen lo. Karlos Zabala

Bazter haietan, Omsk eta Tobolskeko **estepa** basatien erdian, hazi zuen ehiztari siberiar ikaragarriak bere semea. Karlos Zabala

Esnatzen zara, eta berriro dakusazu aurrean **estepa** inorgabea, etxerik gabeko eremu zabala, dena berdina eta laua. Jose Morales

Aitak denboraldi latza bizi izan zuen urrutiko **estepetan**, eta guztiz kamustuta itzuli zitzaigun etxera. Javi Cillero

Garai hartan Txinako gobernu inperialari estutasun larria sortzen zioten arriskuak eurasiar **estepatik** etorritako lehorreko inbasioarenak ziren. Iñaki Mendiguren

3 irud/hed

Hiru aldiz igaroa nuen, hortzak klaskatzen, nire gelako **estepa** huts izoztua, eta iparbururako espedizioetatik zertxobait ezagutu. Josu Zabaleta

4 (hitz elkartuetan)

Inoiz aitortu izan badut **estepa**-otso sentitzen nintzela, nire inguruan ez nuelako kide literariorik aurkitzen izan. da. Ana Urkiza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estepan aurrera (5); **estepan barrena** (14); **estepan zehar** (4); **eurasiar estepako** (3); **siberiako estepa** (3)

---

estera *iz* espartzuzko ehun lodia, eskuarki lurra estaltzeko erabiltzen dena.

Esterak, ohe tolesgarriak, aulki eta mahaien hondar zarpailak, Londresen beren buruak ongi pagatutakoak -hainbestean zetozen honerako; eta argazki bat edo beste, eta liburuak. Anton Garikano

Estera maizten ari zen; hormako papera lasatzen. Anton Garikano

---

estereo 1 *izond* estereofonikoa.

Hi-fi **estereoa**. Irene Aldasoro

Ona da bakoitza bere larruan ondo sentitzea, eta ona da, halaber, musika **estereoan** entzutea. Luis Elberdin

Maitasuna eta sexua poesia dira, **estereoan** entzuten den musika, bizi esperientzia bat disfrutatzea eta elkarrekin bizitzea. Luis Elberdin

2 gailu estereofonikoa.

Khaled barraren beste muturrean dagoen **estereo** jurasikora zuzendu da geldiro, alboka ibiliz eta besoak jaistera ausartu gabe. Patxi Iturritegi

3 irud/hed

Beldurturik gelditu naizenean, belarri batetik besteraino dituzten hortzak erakutsiz inguratu naute biek, **estereoan** marmarrean. Joseba Sarrionandia

Tunelaren itzalpean ezkutatu ziren, dardaraka, metatuak, bata besteen bihotzen punpak **estereotan** antzeman zitzaketela. Itxaro Borda

---

estereofoniko *izond* hotsak grabatzeko eta entzuteko sistemez mintzatuz, hotsak naturalki banatzen direla dirudiena.

Zergatik ditugu, orduan, bi belarri, bihotz bat eta garun bat bakarrik ditugula? Bada, honexegatik: bi belarriek sistema **estereofoniko** bat eratzen dutelako, eta hartara jakin dezakegulako soinua nondik datorren eta sorburua mugitzen ote den. Irene Aldasoro

Belarriek, garunarekin elkarlanean, goi-fidelitateko soinu **estereofonikoak** eskaintzen dizkigute, xuxurla batetik edo hostoen firfiratik hasi eta izadiko hotsik ozenenetarainoko

eskalan. Irene Aldasoro

Belarrien ardura da, goi-fidelitateko entzumen-sistema **estereofoniko** bat eskaintzeaz gainera, gorputzari orekan eustea. Irene Aldasoro

3D kamera bat eta hi-fi soinu-erreproduzitzaile **estereofoniko** bat. Irene Aldasoro

---

estereografiko *izond* erliebe ikuspena ahalbidetzen duena.

Imanaren aldakortasunak, Ortibetako eta Okasoetako Anplitudoen Taulek, proiekzio **estereografikoek**, pentsaketa jartzen ninduten. Aurelia Arkotxa

---

estereopsia *iz* ikuspenari sakontasun sentsazioa ematen dion prozesua, bi begien arteko kokapen distantzia baliatuz.

Hemen ere irudiek ez dute inolako **estereopsia**-efekturik, efektu hori eragin dezaten berariaz prestatutako irudiak ez badira behintzat. Josu Zabaleta

Behatz batez begietako bat zapalduz gero, esate baterako, garuneko zentroek parte hartu gabe mugiaraziko du begia, eta **estereopsia** ez ezik, ikusmenezko bertikaltasuna ere galarazi egingo digu. Josu Zabaleta

---

estereoskopiko *iz* erlibezko ikuspena ahalbidetzen duena.

Desberdintasun hori txikia baldin bada, berriz, puntu bakarra balitz bezala ikusiko da, baina begirada finkatuta dagoen puntuarena ez bezalako sakontasun batean: sakontasun **estereoskopikoa** deitzen zaion garrantzi handiko fenomenoa da hori. Josu Zabaleta

Irudi **estereoskopikoaren** printzipioa Wheatstonek formulatu zuen 1838an estereoskopioa asmatu zuenean. Josu Zabaleta

---

estereoskopio *iz* begi bakoitza okular banatan jarririk irudi bakar erliebezkoa sortzen duen gailua.

Irudi estereoskopikoaren printzipioa Wheatstonek formulatu zuen 1838an **estereoskopioa** asmatu zuenean; tresna horren bidez begi bakoitzari irudi bat erakusten zaio: bi irudien arteko desberdintasunak kontu handiz kalkulatuz, errealitatean gertatzen den sakontasun-efektuaren antzeko sakontasun estereoskopikozko efektu bat eragiten da. Josu Zabaleta

---

estereotipatu *izond* aldaketarik gabe formula bat balitz bezala errepikatzen dena.

edozein zirkunstantziatan kimikaritzat ezagutarazten zaituzten zenbait jokabide **estereotipatu**: materia asmagaitza azazkalaz nahiz labanatxoaz haztatu, usain egin, ezpainekin sentitu ea "hotza" den ala "beroa", [...]. Juan Garzia

Filmegintzan berean, azken aldi honetan egin diren lanak ez dira horren interesgarriak; fotogenia lausotu, arruntu egin da gehienbat, formula **estereotipatuetan** finkaturik. Josu Zabaleta

Galoerromatarra, aldiz, bizia zen, eta handiustea; batera mintzatzen zen ezpainez, begiez eta eskuez, eta hamaika modu zituen pentsatzen zuena adierazteko, haren solaskidearen modu **estereotipatu** aldaezin bakarraren aldean. Karlos Zabala

Hitzontzikeriarako joera, kalaka zentzugabea nahiz esaldi eginez betetako hizkera **estereotipatua**. Xabier Olarra

Generoaren ikuspuntutik begiratuta, badu errebeldia, inkonformismoa edo irudi **estereotipatuen** ukazio erlatiboa, doktrina feministaren fruitu zuzena ez badira ere. Ana Urkiza

Autismoaren beste bereizgarri bat, Kannerren iritziz, "gauza beren errepikapen tematia" zen, eta mugimendu eta hots errepikakor eta **estereotipatuen** forma har zezakeen, edo, sinpleago, estereotipoarena. Xabier Olarra

---

estereotipo *iz* esaldi, ideia edo irudi estereotipatua.

Ez gaitzala **estereotipo** edo ereduen arabera kokatu. Ana Urkiza

Zenbait **estereotipo** antzinakoak dira, arketipikoak. Berria - Euskal Herria

Ez, noski, hezur eta haragizko euskaldunak, baizik eta **estereotipoaren** arabera asmatutako panpina batzuk. Bernardo Atxaga

Gainerakoan, bere espezialitateko **estereotipoari** dagozkion guztiak bete-betean konplitzen zituen: kalakari isilezina, bidaiari ipurtarina, gautxori nekaezina, edale zoroa eta emakumezale gogorra. Aingeru Epaltza

Barneratuegi dugu **estereotipoa**: gizonezkoa berdin burua berdin agerikotasuna berdin garrantzitsua; emakumea berdin bihotza berdin intimismoa berdin ez hain garrantzitsua. Ana Urkiza

Klixeez, topikoez eta **estereotipoez** baliatzen da Gallego, ironia erabiliz, haiez barre egiteko. Berria - Kultura

Hirugarren horretan, nahi gabe izanda ere, bete-betean sartu zinen **estereotipoaren** zakuan, senar negartiaren lantua jotzen zenuela: emazteak ez nau ulertzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Schlemielaren irudia **estereotipoa** da yiddish literaturan. Koro Navarro

Gizakiaren **estereotipoak** dira, oso ironia zorrotzez eta gupidarik gabe begiratuak; hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxekoandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, administratzaile alferra, funtzionario ustela, [...]. Jose Morales

Bere ustez jendeak onartu egin ditu hedabideek zabaldutako zenbait **estereotipo**: «Adibidez, jendearentzat etorkinak dira diru laguntzak eskatzen dabiltzanak, eta uste horrek kalte egiten die». Berria - Euskal Herria

Nolakoa den adierazteko, esango nuke emakume frantziarraren **estereotipoa** iruditu zaidala beti, seduzitzeko armak beti prest dituzten horietakoa. Ramon Saizarbitoria

Geure identitatearen **estereotipoetan** preso ginauden eta guztiak baketzen ziren egoera horrekin. Itxaro Borda

Ez zen zahar erretxinduaren **estereotipoan** sartzen: inoiz ez zidan hitz txarrik esan; bestelakoak ere gutxi, egia esan: ez omen zitzaion berritsukeria gustatzen, eta isilik ematen zituen aldi luzeak, leihoaren edo libururen baten aurrean, bere oroitzapen edo gogoetetan galduta. Xabier Mendiguren Elizegi

Besoa diosal egiteko goratu zuenean, gehiegi altxatu zuen; espasmo edo postura zurrun batean gelditu zela zirudien: noizbait izandako **estereotipoen** zantzu bat, oihartzun bat edo. Xabier Olarra

Arabiarren **estereotipo** faltsu bat zabaldu du zinema estatubatuarrak munduan barna. Berria - Kultura

Futbola **estereotipo** eta esaldi errepikakorrez josita dagoela diogu sarri, baina esaldiez gain, egoerak ere urtea joan, urtea etorri, oso antzekoak dira. Berria - Kirola

Zahartzaroaren eta bakardadearen arteko harremanen oinarrian gizarte **estereotipo** batzuk daude. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estereotipo bat (3); **estereotipo eta** (4); **estereotipo hori** (3)

---

estereotiposfera *iz* balio militarrak agintzen duten atmosfera.

Galdera, bistan da, euskal idazle bati noiznahi egiten dioten horietakoa zen, eta aspertuxea orduan bertan ere halako kontuekin, aspertuxea beti **estereotiposferan** mugitu beharraz, joan egin zitzaidan taxuz erantzuteko gogoa, eta txorakeria batekin ateratzea erabaki nuen, esanez: Noizbait, ez dakit non, **estereotiposferan** bizi ginela esan nuen, eta egia dela uste dut. Bernardo Atxaga

estereotipotasun *iz* estereotipoaren nolakotasuna.

Eskura-erraztasun hori erlatiboa da, ordea; erabiltzen diren konbentzioek nagusi diren konbentzioekin alderatuz duten **estereotipotasun** mailaren araberakoa da. Josu Zabaleta

estereotipozaletasun *iz* estereotipozalearen nolakotasuna.

Batzuei (damu baziren ere) axolagabekeria edo arinkeria bitxi bat nabari zitzaien; [...] zenbaiti, odolberotasuna eta erronkazaletasuna, mugapen fisiko eta sozialekiko etengabeko indar-probaketa; beste zenbaiti, Inguruneari buruzko erreakzio etengabe eta nekaezina, edozein gauzari keinadaka eta usnaka ibiltzea edo gauzak bat-batean jaurtitzea; eta beste batzuei, azkenik, **estereotipozaletasun** eta obsesibotasun larria: ez zen bi gaixo erabat berdinik. Xabier Olarra

esteril *iz* antzua; elkorra.

Eremu **esterileko** zerbaitek, debekuak, sindromea esnarazi zion; bat-bateko zartadak ematen edo keinadak egiten hasi zen eskuineko eskuaz -jadanik eskularruz jantzia hura- ezker besoko alde biluzi, garbitu gabeko, "zikin"erantz. Xabier Olarra

2 ernamuin patogenorik ez duena.

Bennettek berehala ekin zion lanari, eskularru **esterilak** jantzirik. Xabier Olarra

Pertsona osasuntsuetan, badira leku bakan batzuk -maskuria eta birikak, esate baterako- **esterilak**. Irene Aldasoro

esterilizatu, esteriliza, esterilizatzen **1** du *ad* esteril bihurtu, ernamuin patogenoez gabetu.

Etengabeko zartada eta keinada bat-batekoak egiten zituen eskuez, bere sorbalda xahutu eta **esterilizatu** gaberantz, ukitzeraino iritsi gabe. Xabier Olarra

Van Daanek ez zituen behar besteko berotan **esterilizatu**. Josu Zabaleta

Egin nuen saio bakarrean, **esterilizatzeko** unean hain zuzen, zapuztu ziren alabari biberoia emateko aukera guztiak. Joxan Elosegi

Esterilizatzeko, biguntzeko eta zukutzeko makina bat da urdaila, besteak beste. Irene Aldasoro

Adituen esanetan, **esterilizatu** gabeko xiringak erabiltzeagatik eta gizonezkoen artean babesik gabeko sexu harremanak mantentzeagatik kutsatu dira gaixo gehienak. Berria - Gaiak

2 pertsonez eta aberez mintzatuz, antzutu.

"Eugenesia" hitzak, esate baterako, jokabide onartezin bat adierazten duelako: hura zela-eta **esterilizatu** izan dira "beherengo"tzat jotako gizabanakoak, eta, buruen buru, izugarrikeria latzez bete nazien kontzentrazio-esparruak. Juan Garzia

Estatu Batuetan martxan jarri zen egitamu baten barruan, hainbat milaka pertsonak **esterilizatu** zituzten, "buru-motel"tzat jota. Juan Garzia

Kanpaina hori AEB Ameriketako Estatu Batuek prestatutakoa da eta «emakume musulmanak **esterilizatzea**» du helburu. Berria - Gaiak

Nigeriako lau estatu agertu dira Nazio Batuen Erakundeak diruz lagundutako txertaketa-kanpainaren aurka, txertoak emakume musulmanak **esterilizatzeko** prestatuta daudela argudiatuta. Berria - Gaiak

3 (era burutua izenondo gisa)

Ahal izango banu, Londresko club batean biziko nintzateke, ez nintzateke inoiz landara joango, parke batera baizik, ur iragazia edango nuke, eta aire **esterilizatua** arnastu. Ur **esterilizatuarekin** garbitzen dio Bev-ek buru gaineko larruaren azpiko azal arrosa, agerian geratutakoa, eta gero, pintzekin, gasa hori olioztatua ezartzen dio gainean. Josu Zabaleta

Orkatila gorritu puztua aztertu ere egin gabe, Xang doktoreak orratz batzuk sartu zituen Uilen hankan, kotoi **esterilizatu** batez garbitu ondoren. Juan Kruz Igerabide

Amaren ikaraz, oihuez eta malkoez oroitzen naiz; eta gogoan dut aita ere, gaza **esterilizatuekin** eta iodo-tinturarekin, oihuka hura ere izuturik. Fernando Rey

esterilizazio **1** *iz* esteril bihurtzea; antzutzea.

Alemania Federaleko ikertzaileek ziurtatu dute gizonengan **esterilizazioa** eragiteko modua aurkitu dutela, haien osasunean edo libidoan kalterik sortu gabe, eta, gainera, metodo itzulgarria dela. Luis Elberdin

Pentsatzen dudana esaterik baldin badut, ia-ia Europako argitalpen-lan osoa **esterilizazio** jarduera da orain, etekinen amesgaiztoak gidatua. Pello Lizarralde

Esterilizazioan eta eutanasian espezializatutako emakume bati ari natzaio laguntzen, haren eskuin-esku bihurtuta". Oskar Arana

Horren harira, ablazioa, **esterilizazioa**, inoiz sexu harremanik izan duten jakiteko probak eta «emakumeen sexu adierazpena murrizteko» beste bide guztiak gaitzetsi ditu. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Kultura guztien **esterilizazio** kanpaina honek kapitalismoaren fase basati honetan du muina, George Bushen *marine*-en eraso-ideologia bera izatera behartzen gaituztelako. Berria - Kultura

esterlin ik **libera 5**.

esterlina ik **libera 5**.

esterlino ik **libera 5**.

esterminatzaile *izond* deuseztatzailea, ezereztatzailea.

Nor naiz ni? Herioa eta sua orotan barreiatzen duen aingeru **esterminatzailea**? Itxaro Borda

esterminazio *iz* deuseztatzea, ezereztatzea.

Janinak, norbaitek jakitekotan, Wernerren bezain Rachelen ahotik ezagutzen zuen Alemanian irekiriko **esterminazio** zelaien existentzia! Itxaro Borda

esterminio *(orobat **exterminio**)* *iz* deuseztatzea, ezereztatzea.

Oihane Errazkin presoaren heriotza «Espainia eta Frantziako agintariek euskal herritar bahituen aurka indarrean duten **exterminio** politikoak». Berria - Euskal Herria

Papon nazien **esterminio** gunetara deportaturiko 76 juduren «atxiloketa eta bahiketa arbitrarioan» laguntzaile izan zen. Berria - Mundua

Primo Levik hilabete luzeak igaro zituen nazien **esterminio** leku batean eta Tregoa izeneko nobela idatzi zuen ondoren oroitzapen horiek kontatzeko. eraginda gertatu dela dio ETAk Politiko-kartzelariek diseinatzen duten sakabanaketa eta **exterminio** politikak hil du. Joxean Agirre

Euskal preso politikoen kontrako **«exterminio** politika» salatu du ETAk Oihane Errazkinen heriotza dela eta. Berria - Euskal Herria

---

esternismo *iz* ik **internismo**.

Kartesianismotik at, dena den, eszeptizismoa errefusatzeko asmoz makina bat alternatiba aurki dezakegu: fundazionismoaren aurrean, koherentismoa; internismoaren aurrean, **esternismoa**; baina baita pragmatismoa ere. Askoren artean

---

esternista *iz* esternismoaren aldeko pertsona.

Esternistek -A. Goldman, R. Nozick edo A. Plantinga-ren ildoan adibidez- ez dute internisten tesia kontuan hartzen, eta uste bat, berriz, hura sortzeko prozesuaren fidagarritasun kognitiboa dela diote. Askoren artean

Esternistak honako hau azpimarratzen du: justifikazioa subjektu horrek ezagutzen ez dituen gauzen mende ere badago, haren errepresentazioetatik at dauden gauzetan. uste badut istripu bat gertatu dela, auto bat, talka bat eta anbulantzia ikusi ditudalako, eta uste hori egia baldin bada, orduan fiabilistak (**esternistak**) ustea justifikatuta dagoela esango du. Askoren artean

---

esternokleidomastoideo *iz* giharrez mintzatuz, lepoan bularrezurretik lokira doana.

Eta ez dakigu, ez daki inork jakite naturalez, eta baldin badaki beste era batera daki, berariaz ikasi duelako daki, **esternokleidomastoideo** zer den (ez) dakien era bertsuan daki. Iñaki Segurola

---

esternomastoideo *iz* esternokleidomastoideoa.

Sen hezigabe batek nabarmenarazten digu atseginez **esternomastoideoaren** laburdura Alexandroren bustoan, edo bekokiko txima Napoleonen erretratuan. Juan Garzia

---

esterobate *iz*

Lurraren gainean paretak egingo dira kolomen azpian, gero egingo diren kolomen diametroa baino erdi bat lodiagoak, hain zuzen ere, azpiko atalak sendoagoak izan daitezen goikoak baino; azpiko horiei **esterobate** esaten zaie, berek hartzen dutelako pisu guztia. Santiago Iruretagoiena

---

esteroide *iz* esteroletik deribaturiko gaia, fisiologian garrantzi handia duena.

Goi mailako kirola egiten duten emakumeengan **esteroideek** duten eragina. Berria - Euskal Herria

Goizean, goi mailako kirolarien artean antisorgailuek duten eragina aztertuko dute, ez bakarrik emakumeen kasuan, baita **esteroideak** hartzen dituzten gizonengan ere. Berria - Euskal Herria

Efedrina, anabolizanteak, **esteroideak** eta klenbuterola, dira, besteak beste, aurkitutako substantziak. Berria - Gaiak

Ikertzaileen esanetan, aspirina edo **esteroiderik** gabeko hanturaren aurkako botikaren bat astean behin hartzen duten emakumeen kasuan minbizia garatzeko arriskua %20 murrizten da. Berria - Gaiak

27 kirolari daude THG **esteroidearen** ustezko kontsumitzaileen artean. Berria - Kirola

· Artikuluan ondorioztatzen zen hanturaren kontrako botika ez-**esteroideek** ahoko minbizia izateko arriskua txikitu egiten zutela, eta, aldiz, bihotzeko gaitzak izateko arriskua handitu egiten zuela botika horiek hartzeak. Berria - Gaiak

---

esterokolitia *iz* este lodien eta meheen hantura.

Esterokolitia: ur sulfatatuak (sulfatatu kloruratuak). Berria - Euskal Herria

---

esterol *iz* esderoideen taldeko gai alkoholiko kristalkara, landareetan eta animalietan agertzen dena.

Esterolen prezipitazioa berrogeita hamar urtetsuko gure arterietan? Juan Garzia

---

esteta *iz* formen edertasuna ororen gainetik aintzat hartzen duen pertsona.

Errealitatearen eta bizitzaren kontzepzio barne-muinetaraino estetikoa da Canoren literaturak eskaintzen diguna: **esteta** baten begirada. Berria - Kultura

Bere lanetan te zeremoniaren gainbehera, Kyôto hiriburu zaharraren xarmaren gainbehera, eta oro har zimeltzen ari den edertasuna lantzen du, baina betiere **esteta** baten ikuspuntutik, kritika zuzenik egin gabe, bide hori naturaren bidea izango balitz bezala ia. Ibon Uribarri

Janzteko modu hura **esteten** janzkera bihurtu zen jendearen begietara. Antton Olano

XX. mendean sartu arte, filosofoek (**estetek**) azterturiko auziak, batez ere, teoria estetikoarenak eta artearen teoriarenak izan ziren. Askoren artean

---

estetika *(orobat **eztetika** g.er.)* **1** *iz* naturako edo artearen edertasunaz diharduen jakintza; ederrari edo edertasunari buruzko ikuspegi jakin bakoitza.

Bada Proportzioen **estetika** bat izadian eta arteetan. Josu Zabaleta

Muntaketa klasiko guztia inoiz gardentasunaren **estetika** deitu izan denean oinarritzen da. Josu Zabaleta

Azkeneko bi mendeotako artearen historian kontzeptu hau baliatu izan den guztietan, Edertasunaren teoria bat izan da **estetika**. Josu Zabaleta

Argazki artistikoa nola ahalegindu zen funtsezko unearen **estetika**, une esanguratsuaren **estetika** hori beretzen. Josu Zabaleta

Hizkuntzak ematen dio literatura bati naziotasuna, ez **estetikak**. Anjel Lertxundi

Hegelen *Espirituaren Fenomenologia*-k dioenez, gustuaren juzguaren aporietatik ihes egin nahi baitu, **estetikak** ez du Edertasuna aztertu behar, artearen eginkizuna baizik. Josu Zabaleta

Bere saio etimologiko burugabeek ere isilunearen **estetikan** dute sostengu, hizkuntzatik kanpo, alegia: Zinematografiako apailua ezin uler daiteke teknikaren eta **estetikaren** (forma filmikoen) alorrak eskari ideologiko batekin artikulatzen dituen zentzuan analizatzen ez bada. Irudien emozio-balioa, berriz, oso gutxi aztertzen da, eta **estetikaren**

alorrean geratzen da ia beti. Anjel Lertxundi

Filosofia XX. mendeko emaitzetara ez delako murrizten, nahiago dugu **estetikaren** bi zutabe nagusietan eraturiko irudia aurkeztu: Artearen Teoria eta Edertasunaren Teoria. Askoren artean

Hari horretatik, gogoeta ontologikoak harremanak ditu filosofiaren beste zenbait azpidiziplinarekin, hala nola etikarekin eta **estetikarekin**. Askoren artean

Halatsu sentimenduek eta **estetikazko** esperientziek ere: oroitzen ditudanek osatzen dute nire gaurko sentiberatasuna. Anjel Lertxundi

2 (izenondoekin)

Garai hartan boladan zeuden **estetika** errealisten eraginez. Josu Zabaleta

Estetika idealistak artearen ikuspegi berri bat proposatzen baitu. Josu Zabaleta

Hori, ordea, **estetika** espresionistaren ikuspegi sinpleegia da. Josu Zabaleta

Esan dezakegu emankorrena XX. mendeko **estetika** analitikoa dela. Askoren artean

Aurkakotasun hau Kantek osagaien irakaspenaren barnean jasotzen du, zeinak **Estetika** transzendentala izena duen sentimenaren eta begiespenaren teoria batekin hasiz Logika transzendentala izena jasotzen duen pentsatzearen edo adimenaren teoria batekin jarraitzen duen. Ibon Uribarri

Estetika transzendentalean, beraz, lehenik, sentimena bakartuko dugu, bertatik adimenak bere adigaien bitartez pentsatzen duena baztertuz, begiespen enpirikoa besterik ez dena gera dadin. Ibon Uribarri

Liburu hori idatzi zuenean **estetika** psikologiko bat landu nahi zuen Worringerrek; garai hartan nagusi zen **estetika** arauemaileari ("artearen zientziari", artelan ideal absolutu, betiereko eta unibertsal batekin lotzen duen araudi bat bezala ulertuz) kontrajarri nahiz. Josu Zabaleta

Estetika orokor bat egin daitekeela baieztatzen du (eta **estetika** bereziak ezinezkoak direla, gainera). Josu Zabaleta

Uste dut euskarak duen garapen maila kontuan hartuta, arriskutsuegia dela **estetika** edo forma hutsean oinarritutako literatura egitea. Ana Urkiza

Lyotarden liburuan **estetika** zehatz bat aldezten da, "figural"-aren estetika, irudia irudikapenean desira ernetzearekin lotuta dagoen heinean. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Estetika maila apalekoak iruditu zitzaizkien irudi haiek, eskematizazio-maila txikia zutelako. Josu Zabaleta

Horrela kontatu dit behintzat Unamunoren miresle den **estetika** irakasle Ivan Dzeparoskik. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere estetika (4); **da estetika** (5); **den estetika** (5); **ditu estetika** (3); **duen estetika** (3); **estetika bat** (8); **estetika baten** (3); **estetika bera** (4); **estetika bezala** (4); **estetika da** (4); **estetika eta** (19); **estetika ez** (8); **estetika ez da** (6); **estetika hitza** (3); **estetika hori** (5); **estetika hutsa** (4); **estetika transzendentala** (5); **estetika transzendentalak** (6); **estetika transzendentalaren** (6); **estetika transzendentalean** (7); **estetikaren eta** (4); **estetikari buruzko** (3); **eta estetika** (36); **eta estetikaren** (8); **eta estetikari** (3); **etika eta estetika** (6); **hizkuntza estetika** (5); **hizkuntza estetika bezala** (4); **zein estetika** (3); **zen estetika** (6)

---

estetikalari *iz* estetikan aditua den pertsona.

Formen bizitza (Vie des formes), bere metafora iradokizunez betearekin, Henri Focillon artearen **estetikalari** eta historialari guztiz klasiko eta Erdi Aroko gaietan espezialistari hartua da. Josu Zabaleta

Sergio Oksman brasildarrak Joseph Mengele mediku naziaren eta Emmy Blum **estetikalariaren** arteko harremana kontatu du *La esteticién* lanean. Berria - Kultura

Sergio Oksmanen lanaren protagonista Auschwitzen egondako Blum andrea da, 76 urteko **estetikalaria**. Berria - Kultura

---

estetiko **1** *izond* estetikarena; estetikari dagokiona.

Zerk bereizten du esperientzia **estetikoa** gainerako esperientzietatik? Askoren artean

Edozein gorabehera **estetikotan** gertatu ohi den bezala, Oteizaren aldarria ere polisemikoa zen, interpretazioa askotarikoa, eta ez norabide bakar batekoa. Anjel Lertxundi

Platonekin hasi eta Kanten ideia **estetikoekin** bukatuz. Askoren artean

Adierazgarritasunaren kontzeptua etengabe aldatuz baitoa gizartea balio **estetiko** berriak onartuz doan heinean; Espiritua edota geure baitakoa hezteko gustu **estetikoaren**, adimenaren eta nortasunaren hobekuntza da kultura. Josu Zabaleta

Inolako "zentzu **estetiko"ren** jabe izan gabe. Xabier Olarra

Gezurra dio hori polita ez dela dioenak, sen **estetikoa** erabat itxuragabetua eta atrofiatua du hori dioenak. Karlos Zabala

Jatorrizkoak dituen gozamen **estetikorako** elementu ahalik osoenak eta berdinenak ezagutu behar lituzke irakurleak itzulpen batean. Anjel Lertxundi

Gutxitxo dakigu koloreari loturiko emozio eta plazer **estetikoaz**, eta are ikuste hutsari loturikoaz. Xabier Olarra

Herriaren ekintza **estetiko** liberatzailea. Koldo Izagirre

Miren Agur Meaberen kezka **estetikoa**, gardentasunaren, dotoreziaren, benetakotasunaren eta erosotasunaren arteko oreka aurkitzea eta lantzea da. Ana Urkiza

Emozio **estetikoa** kontzeptua, bigunegia eta oso subjektiboa baita. Askoren artean

Euskaldunok emana genion Neolitoan erantzuna, erantzun **estetikoa**, arazo existentzialari. Iñaki Iñurrieta

Garai bakoitzak bere jarrera **estetikoak** izaten ditu, bere zoroari jarraitzen dio. Patxi Iturritegi

Oro har, erlatibismoak baieztatzen du gure ideia kognitiboak, moralak edo **estetikoak** -egiatasunaz, esanahiaz, razionaltasunaz- haiek sortzen diren testuinguruekiko erlatiboak direla. Askoren artean

Giza egintza espiritual ororen barneeneko elementuak, errealitatearen aurrean baieste zein ezeste (intelektual, sentimental, **estetiko**) oro arautzen dutenak. Joxe Azurmendi

Gizakumeak normalean ez ditu oinak erakusten, erru **estetiko** eta etikoa balira bezala ezkutatzen ditu. Patziku Perurena

Sentitu bai, baina kategorien arabera pentsatzen ez dugunaz (pintura baten kontenplazioan, adibidez), hautemate **estetikoa** dugu, baina propioki ezagutzarik ez bietan ere. Askoren artean

Aspektu **estetikoak**: hoskidetasuna, erritmoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bakoitzak eta guztiek zuten nire mundu **estetikoarekin** zerikusia. Anjel Lertxundi

Teoria **estetikoak**, beraz, edertasunaren teoriaren gainbehera erabatekoa ekarri zuen, horren objektua, azken buruan, sekula ezin zelako ongi definitu. Askoren artean

2 (izenondo elkartuetan)

Gehiago edo gutxiago gustatuko zaigu, baina argudio **estetiko**-ideologiko horrekin ezin dugu Homero alboratu Filosofiaren Historiatik. Askoren artean

Berez ez duen xedea ezartzen zaio bat-bateko bertsoari, bertsolariaren asmoa ez baita maila **estetiko**-literario handiko testuak sortzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

3 gorputza eta eskuarki aurpegia edertzeaz arduratzen dena.

Klinika **estetikoetan** ohi diren moduko mantal zuri serioa. Joxan Elosegi

Egia da, hiru aldiz baliatu naiz kirurgia **estetikoaz**, bi ebakuntza aurpegian eta bat bularretan. Karlos Zabala

Emakumeen aldizkariek kirurgialari **estetikoen** helbideak eskaintzen zituzten. Joxan Elosegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo estetiko (4); **balio estetiko** (4); **balio estetikoa** (4); **edo estetiko** (3); **erantzun estetikoa** (3); **esperientzia estetikoa** (4); **estetiko bat** (12); **estetiko batean** (3); **estetiko edo** (5); **estetiko eta** (8); **estetikoa dela** (4); **estetikoa ere** (3); **estetikoa eta** (3); **estetikoa ez** (3); **estetikoak eta** (5); **eta estetiko** (3); **eta estetikoa** (3); **eta estetikoak** (4); **helburu estetikoekin** (3); **jarrera estetiko** (3); **kezka estetikoak** (3); **kirurgia estetikoa** (3); **plazer estetikoa** (3); **teoria estetikoek** (3); **zure kezka estetikoak** (3)

---

estetikoki *adlag* estetikaren aldetik.

Estetikoki, Mikel Lasa eta Claudio Rodríguez elkarrengandik hurbilago daude, Mikel Lasa eta bere belaunaldiko ezein euskal poeta baino. Anjel Lertxundi

Hona etortzen diren hainbat pertsonak operatu nahi dutela diote, nahiz eta loditasunak oraindik ez dien osasun arazorik eragin, **estetikoki** oso gaizki ikusten dutelako euren burua eta egoera hori amaitu nahi dutelako. Berria - Euskal Herria

Dotorezia aipatu zuen lehenik, **estetikoki** perpaus hark ez zuelako hitz bat gehiago behar; argitasuna ondoren -malenkoniatsu heldugabea nintzela asmatzeko inteligentzia sobera ere behar ez zen arren, esan zuen umoretsu-, eta, azkenik, hoztasuna ikusten zuen. Ramon Saizarbitoria

Estetikoki eta teknologikoki aitzindari dira egitasmoak. Berria - Gaiak

Estetikoki eta musikalki, nahiko kontzertu berritzaile eta ausarta egingo dugula uste dut. Berria - Kultura

Geografikoki urrun baina **estetikoki** eta filosofikoki gertu dauden bi zinemagile horien arteko antzekotasunak biltzen ditu horrek, biok filmatutako gutunen bidez. Berria - Kultura

Politikoki eta **estetikoki** zuzenak diren albiste irakurle horiei *anchorperson* esaten diete. Txema Ramirez de la Piscina

Bere obra, orotara begiratuta, koherentea denean **estetikoki** eta etikoki. Ana Urkiza

Liburuzainari borreroaren lana "etikoki zuzena eta **estetikoki** ederra" iruditzen zaio. Karlos Linazasoro

Istorioa 1967an girotzea erabaki dut, garai hori **estetikoki** erakargarria delako. Berria - Kultura

Beste bertute batzuk jarri baitira zirkulazioan, sozialki eraikikorragoak, **estetikoki** hain erakargarriak ez badira ere. Iñaki Mendiguren

Sei urte geroago, 2000ko urtarrilaren 6an, Iparraldeko Demoek **estetikoki** oso antzekoa zen pintada bat egin zuten Baionako presondegiko murruetan. Txema Ramirez de la Piscina

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estetikoki eta (4); **estetikoki oso** (3)

---

estetismo *iz* estetizismoa.

Edo, eszeptizismoaren eta **estetismoaren** azken sinesmena. Piarres Aintziart

Snobismo ergel batek ekoiztu kultura gose arin bat asetzeko aitzaki hutsez, hots **estetismoz**. Piarres Aintziart

---

estetizante *izond* estetizismora makurtzen dena.

Ez da horrela formulatzen, azpian identitate-nazio gogo handia dagoelako, baina batua, ariketa moduan, berez, **estetizantea** da. Berria - Euskal Herria

---

estetizazio *iz* estetiko bihurtzea.

Oroitzapen tragiko batzuen **estetizazio** eta leuntze lan xume bat da proposatzen duena. Berria - Kultura

Gaur egungo irudien saturazioak eta errealitateren **estetizazioak** balio aldakorrak edo elkar trukatuak ematen dizkio irudiari. Berria - Kultura

Artearen politizazioaren aurrean ote gauden edo, aldiz, gai politikoen **estetizazioei** buruz hitz egin behar ote dugun galdetu zuen Zayak. Berria - Kultura

---

estetizismo *iz* estetikari eta edertasunari erabateko garrantzia ematen dion joera ideologikoa.

Ekintza bat, eta haren ondoren bizitzarako jaioko ziren, artistakeriak eta **estetizismoak** eta hura guztia zakarretara botata. Iñaki Iñurrieta

Zain anarkiko horrek badituela bere gaitzak eta makurrak ere, hala nola **estetizismoaren** arriskua, fribolizaziorako joera, antolamendurako hozkia, eta ekintzarako antzutasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

Estetizismo *couché* haren kontra, agerian jartzeko, ekintza erabatekoa, estetikoa zinezko zentzuan, dela beharrezko. Iñaki Iñurrieta

"Kredo" tradizional zaharrak krisiak eraitsi zituenez gero, jende pila bat hemen horrelaxe ibili baita denbora askoan, exker pinpirin, kristautasun progre baten eta **estetizismo** amoralaren artean dilindan. Joxe Azurmendi

Estetizismoak diletantismora eramandako 1980ko hamarkadako belaunaldiko kide aitortzen du bere burua, eta talaia horretatik garatzen ondorengo berbaldia. Berria - Kultura

---

estetizista **1** *iz* estetikan espezialista den pertsona.

Estetizista ez zela erantzun zidan dermatologoak. Joxan Elosegi

-Gustura eseriko nintzateke, baina ezin dut, **estetizistan** ordua hartua daukat. Migel Angel Mintegi

-Alferrik zoaz -goitik behera begiratu zion berriro-, ez duzu beharrik, oporrek egin duten lana ez du **estetizistak** hobetuko. Migel Angel Mintegi

2 *izond* estetizismoaren aldekoa.

80ko hamarkadan joera **estetizista** asko zabaldu zen. Berria - Euskal Herria

Elementu apaingarria, **estetizista** da pintura tradizionalean. Bernardo Atxaga

Bainu bat hartu, frakak garbitu, eta, amaitzeko, ispilu aurrera agertzean, lardaskan ibili naiz gelakideen krema harrigarri ugarien artean (argi dago **estetizistak** direla). Patxi Zubizarreta

"Herria buruzagiak egiten duela" ("...*dass das Volk nur durch den Führer Volk wird*"), etab., eliteen eta Führer-aren teoria **"estetizistari"** buruz, ik GIESEN, [...]. Joxe Azurmendi

Mamiaz betetzen du psikologismo **estetizista**, gizarteko errealitatera ekarriz pertsonaien prozesu mentalak. Berria - Kultura

---

estetoskopio *iz* auskultatzeko erabiltzen den galua.

Alberto pixka batean ateratzen zen kontsultatik, mantalarekin, **estetoskopioa** bularrean zuela, eta erradiadorera hurbiltzen zen, epelera. Fernando Rey

Gero, bere mantal zuria jantzita eta **estetoskopioa** lepotik zintzilik zuela, ondoko gelara joaten zen. Fernando Rey

Andresek, halako katalepsiarik ez zela konbentzituta zegoen arren, **estetoskopioa** atera eta bihotzaren parean auskultatu zuen gorpua. Josu Zabaleta

Estetoskopio hautsiaren gomak lepotik kendu eta luzatu egin zenizkion. Koldo Izagirre

---

esti **1** *interj* idiei atzera egiteko esaten zaien hitza.

Esti atzera, putar hori! Patxi Ezkiaga

2 ***esti eragin*** atzerarazi.

Frantziak ere iritzi horixe zuen, senez, oharpen horiek guztiek ez baitiote gerra honetatik **esti eragin**. Josu Zabaleta

Duboisek, berriz, lehen planoak eragiten dituen irrika-efektuak azpimarratzen ditu batez ere, fokatze-efektua, zorabio-efektua [...] eta Medusa-efektua, aldi berean liluratzen eta **esti eragiten** duena. Josu Zabaleta

---

estibadore *iz* itsasontzietan karga egoki jartzen aritzen den langilea.

Ontzien sarrera eta deskarga ikusi nahi nuen, kargagatik uretan ondo sartuak heltzen zirenak, baina geroago hasiko ziren, biharamunean igual, garabien, kontainerren, **estibadoreen** mugimenduak. Joseba Sarrionandia

Martak, Trintxerpekoa izaki, berak baino askoz jende gehiago ezagutzen zuela Pasaian, haien artean hainbat **estibadore**, eta baita Pasaian garai zaharretan kontrabandoan ibilitako makina bat pertsonaia hala-moduzko ere. Harkaitz Cano

Estibadoreak kargak estali ondoren aterpeetan babestu ziren. Joseba Sarrionandia

Estibadoreen eta garabizaleen greba mugagabeak bete-be tean harrapatu zuen Amenofis II.a ontzia. Harkaitz Cano

---

estibatzaile *iz* estibadorea.

Berandu genbiltzala, zatirik onenak **estibatzaileek** berek eta gero zaborketariek eramanak zituztela. Koldo Izagirre

Bakean utzi gintuzten hala ere, igande goizetan kapitaina etortzen zitzaien hiriburuko komandantziatik eta **estibatzaileen** jangelan Itsas-Apostulutzako kapilauak ematen zuen mezetara eramaten zituen galaz jantzita. Koldo Izagirre

---

estibor *iz* itsasontzi batean, eskuineko aldea, popatik proara begiratuta.

Algorriko harkaitza **estiborrean** genuen, ongi gindoazen. Koldo Izagirre

Pendizaren orpoan daude kokatuak mendiari eusten bezala karrikaren **estiborreko** etxeak, nolabait esatearren. Koldo Izagirre

Horretan ari nintzela kareletik dindilizka, izardunen arteko hitzaspertua atzeman nuen **estiborreko** erdialdean, zubipean. Koldo Izagirre

Labana hortzetan hartuta igo nintzen kubertara ainguraren katean goiti, **estiborreko** amuratik. Koldo Izagirre

Purrustarri ingurura joana zen kalma zuria baliatuz itsasoan zabal lema **estiborrera** zarratuta. Koldo Izagirre

Eastbourne urrun utzia genuen **estiborretik**, Brighton parean izanen ginen. Koldo Izagirre

Ontzia askatuta portuaren erdiraino ekarri zuen, umeak arraun bakarrean hasten direnean bezala jarri zuen itzulika, lema total **estibor** emanda. Koldo Izagirre

---

estigma **1** *iz* gorputzeko zauria edo seinalea.

Heriotza baino lehentxeago, gurutziltzatua agertu zen gure anaia eta aita, bost zauriak, Kristoren benetako **estigmak** alegia, bere gorputzean inprimaturik zeramatzala. Askoren artean

Egunak joan egunak etorri, Elisa **estigma** konprenigaitz eta krudelak antzematen hasi da Gillesen aurpegian. Pablo Sastre

Besamutur odoleztatua jarri zuen kameren argitara, eta esan zuen huraxe zela **estigma**, Jaunaren dei gozoa, eta saindu egingo zutela laster bere auzoko parrokian. Karlos Linazasoro

2 irud/hed

-Erraza baita pertsona bat **estigma** batekin markatzea. Joan Mari Irigoien

Zailena **estigma** hori kentzea da. Joan Mari Irigoien

Eritasunaren inguruko informazio okerrak, eta GIBarekin bizi diren pertsonen aurkako **estigmak** oztopatu egiten dute gaixotasunaren prebentzioa. Berria - Gaiak

Biolentziaren markarekin bizi baikara ordudanik euskaldunok, eta marka hori, ia berrogei urte geroago, bat egin baitzaigu haragiarekin, **estigma** makurra bihurtzeraino. Bernardo Atxaga

Gizartean buruko gaitzak **estigma** latza dira oraindik. Berria - Harian

Bere arbasoek egindako bekatuen **estigma** baitzeraman bihotzean suz markaturik. Anjel Lertxundi

Nola, iraganaren **estigmaz** libratzeko, nortasun berri bat asmatu zuen aita-amen izenak erabiliz: Sandor Lester. Eskarne Mujika

Alde batera uzten ditut, kalkulu horretan, gaztetako ikastetxean egin behar izandako ahaleginak ez ziezadaten aldeanoaren **estigma** ezarri. Bernardo Atxaga

Emakumeen aurka **estigma** gogorrak ezarri dituztela diozu. Berria - Euskal Herria

Kainen **estigma** suz zizelkaturik eramango balu bezala. Fernando Morillo

Zapaltzaileak zapalduari ezarri zizkion lau **estigmetatik**, arraza-gutxiagotasunari buruzko **estigma** zen maltzurrena. Iñaki Mendiguren

Hester Prynneren letra gorriak laidoarenak ziren, pentsamendu estu eta bihurriko jendeek eza rritako zigor eta **estigma**. Anjel Lertxundi

Ekonomia politikoak bere papera duela gizarte kapitalistan, burges klasearen interesei zerbitzatzen diela, berak eta berarentzat egindakoa dela, azkenik bere jatorrien **estigma** daramala. Xabier Arregi

Kutuna edo talismana baino areago bere bizitzaren **estigma** bilakatua zen perla hura aldamenean eduki ezean ezin zitekeen harrezkero momentutxo batez ere lasai egon gure gizona. Xabier Mendiguren Elizegi

Prentsa abertzalearen **estigma** militantea. Txema Ramirez de la Piscina

3 (hitz elkartuetan)

Arraza-**estigma** erlijio eta kultur **estigmekiko** desberdina zen. Iñaki Mendiguren

---

estigmatiko *izond* estigmak dituena.

Anne Katherine Emmerich serora **estigmatikoaren** ikuskari mistikoak ditu oinarri Gibsonek Jesusen sufrikarioa adierazteko unean. Berria - Kultura

---

estigmatizatu, estigmatiza(tu), estigmatizatzen du *ad* estigmaz markatu.

Lombroso italiarraren teorien arabera, bazen kriminal tipo zehatz bat, jaiotzetik **estigmatizatua**, fisikoki ezaugarri jakinak zituena eta herentzia genetikoa zela eta kriminal bihurtuko zena. Harkaitz Cano

Ijito batek delitu bat egiten duenean jendeak ijito izateari eman ohi dio garrantzia, eta kolektibo osoa **estigmatizatzen** du. Berria - Euskal Herria

Batetik, **estigmatizatzen** du: langabezian bada, bere falta da. Berria - Harian

Eslogan politiko bilakatu gaituzte, **estigmatizatu** egin nahi izan gaituzte. Berria - Kultura

Berdin zaie euren iritzia ezjakintasunetik abiatzen bada ere, euren helburua oso garbi baitaukate: "euskal" adjektiboa duen oro **estigmatizatu**, susmopean jarriz. Txema Ramirez de la Piscina

Goian aipaturiko pasartean **estigmatizaturiko** erromatar izen desegokiek bazuten azalpen bat, Erromako errepublikaren historia militarrean aurkitu beharrekoa. Iñaki Mendiguren

"Arraza kaskarragoen" hazitzat **estigmatizatuz**. Iñaki Mendiguren

Ezagunak dira San Frantzisko **estigmatizatuaren** hainbat pintura, 1250 baino lehenagokoak. Askoren artean

---

estigmatizazio *iz* estigmatizatzea.

1990eko hamarraldiaren hasierako finantza-integrazioaren azkentzeak, parekotasunen doikuntzaren **estigmatizazioarekin** batera, nahitaez lastertu zuen ekonomien bateratze nominala. Koro Navarro

Etorkinak: «Ikuspuntu etnozentrista baztertu eta etorkinen **estigmatizazioa** baztertu behar dela». Berria - Euskal Herria

Exogenoak, berriz, gizarte arazoak dira: bazterketa, axolagabetasuna, aurreiritziak edo **estigmatizazioa** dira arazo handienak. Berria - Euskal Herria

---

estilete *iz* sastakai estu puntaduna.

Esan nahi baita Roger edo Rogeiro hau kronikagile etorri dela, hori oraintxe nabarmen gelditzen da, anekatik idazteko materialak ateratzen dituenean, **estileteak** eta oholtxoak bakarrik, bestela mandoaren tran-tranarekin tinta isuri eta letra barreiatuko litzateke Jon Alonso

---

estilista *(orobat **eztilizta** g.er.)* **1** *izond* idazleez mintzatuz, estiloa arretaz zintzen duena.

Saia gaitezen **estilista** bikainak izaten, ezen ez hitz bitxien biltzaile. Josu Zabaleta

Sormenari zor dion espresibitatea, erregistro ezberdinen kolorea, **estilistika** oso bat da idazleak erakutsi, eman nahi duena. Iñigo Aranbarri

Idazle eta irakurle haietako askoren iritziz, Carver izan da bere garaiko estatubatuar **estilistarik** hoberena eta eraginkorrena. Koro Navarro

Egia esan, aski da Kixoteko parrafo bat edo beste ikuskatzea Cervantes **estilista** ez zela sumatzeko (gutxienez hitzaren oraingo adiera akustiko-apaingarrian). Juan Garzia

2 *iz* estilistikan aditua den pertsona.

Donostian egunotan egiten ari den ile orrazkeren erakustaldi batean parte hartzen ari diren bi **estilista** italiar atxilotu zituen atzo Donostiako Udaltzaingoak, desfilean parte hartzen ari ziren hiru modelori sexu gehiegikeriak egiteagatik. Berria - Euskal Herria

Edo 'distira oro ez da urre pilpira', apur bat **estilistetara** jokatuz. Pako Aristi

Estilista ikasketak egiten ari da, eta gastuak ordaintzeko behar du dirua, hilean 82,5 euro kostatzen baitzaizkio. Berria - Mundua

Bizkitartean, eta Andimaren gutun haiek atondu zituen Patri Urkizuk definitu bezala, goza dezagun **estilista** eta aintzindari handi honen ekarpen anitza, horretarako gure gabeziak agerian gera dakizkigukeen arren. Berria - Harian

Estilo bizi eta jostagarriko **«estilista** handia». Berria - Kultura

---

estilistika *iz* estiloaren eta hizkuntza-adierazpidearen azterketa.

Irakasle hauek landuko dituzten ikasgaiak keinu eskolak, historia, **estilistika**, errepertorioa eta entsegu teknikak izango dira. ikusi besterik ez dago, horretaz konturatzeko, garai bakoitzeko boladen, **estilistikaren**, janzteko moduaren, fisionomiaren eta abarren zenbaterainoko eragina duten Jesukristoren bizitzaz egin diren filmek. Berria - Kultura

Euskal **estilistikak** hainbat gai oraindik ez ditu behar beste jorratuta. Berria - Kultura

Ez ditu aintzat hartu euskararen berezitasunak eta **estilistika**. Berria - Euskal Herria

---

estilistiko *izond* estilistakari dagokiona.

Euskal literaturaren balioa ez da, berez, nolako aurrerapen teknikoa, **estilistikoa** edo tematikoa eskaintzen duen. Ana Urkiza

New York hirian kokaturiko kontakizun luze honetan berrikuntza **estilistikoak** egiteko aukera izan zuen John Dos Passosek, USA trilogian erruz baliatuko zituen berrikuntzak. Lopez de Arana

Disko hura nahiko iraultza **estilistiko** bortitza izan zen zuretzat. Harkaitz Cano

Mariasunen helburu **estilistikoa**, ahalik eta emozio gehien ahalik eta elementu **estilistiko** gutxienekin adieraztea da. Ana Urkiza

Bordwellen azterketak dira gehien konbentzitzen dutenak, dakarten informazioaren xehetasun eta zehaztasun apartekoagatik, proposatzen dituen sistema **estilistikoek** zenbaitetan mekaniko samarrak badirudite ere. Josu Zabaleta

Badu, bai, akrobazia puntu bat, malgutasun **estilistiko** eta formal bat, goi-mailako soinketarien ezpaleko egiten nauena. Karlos Linazasoro

Fikzio horretan, teknika zorrotz eta zuzen baten bitartez, apaingarri **estilistiko** ohikorik batere gabe, gizarteak itxuraz ahaztuak dituen galtzaile sail bat ezagutzen du - "ikusten", eta batez ere, "entzuten" du- irakurleak: langabetuak, alkoholikoak, dibortziatuak, telebistari begira dauden gizaki bakartiak. Koro Navarro

Jauzia figura **estilistiko** bat da, eta film batean duen erabilera film horretarako indarrean zeuden arau formalen arabera behar da aztertu. Josu Zabaleta

Zati laburra da hautatu dena, baina hala ere, balio **estilistikorik** gabeko errepikapenez josia dago. Iñigo Aranbarri

Neo-formalismo horrek testu artistikoak beren testuinguru formal eta **estilistiko** zehatzaren definizio xehe baten bidez interpretatzeko metodologia bat esan nahi du, grosso modo. Josu Zabaleta

Inork ez dezala pentsa, ordea, balio estetiko edo **estilistikoen** galbahea erabili dugunik: idazle nagusien maisulan onetsiak eta ezezagunen zirriborro ia galduak maila berean jarri ditugu, Argazki-irudiak ez du zertan nahitaez gardena izan beharrik, sakontasun hori berariazko aukera **estilistiko** historiko batek eragiten du. Iñaki Arranz

Disko hura nahiko iraultza **estilistiko** bortitza izan zen zuretzat. Harkaitz Cano

Izan ere, lan akademikoen aspektu **estilistikoak** zaintzea berebizikoa da lan bat atontzeko orduan. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estilistiko bat** (3)

---

estilistikoki *adlag* estilistikaren ikuspuntutik.

Azaleratzea bilatzen duten obrak dira gelditzen direnak eta geldituko direnak, baina ez teknikoki edo **estilistikoki** ekarpen handia egin dutelako, baizik eta zintzoak izaten ahalegindu direlako, hau da, haustura bat ekarri dutelako. Ana Urkiza

---

estilizatu, estiliza(tu), estilizatzen **1** du *ad* lirainagoa bihurtu; irudikapen grafikoa oinarrizko ezaugarrietara mugatu.

Apur bat argaldu da, eta musua **estilizatu** egin zaio. Urtzi Urrutikoetxea

Jantzia deseroso samar zetorkion sorbaldan, eta estutxo sentitzen zuen gerrian, baina, gainerakoan, gorputza **estilizatzen** zioten soinekoaren marra urdin-zuri bertikalek, Nora zena baino neska garaiago baten itxura eraginik. Anjel Lertxundi

Rosen-berg-ek arraza (alemana) esatea beste gabe (abereez mintzo bagina bezala!) ez omen zuela aski fina kausitzen, eta "arrazaren arima" lelora **estilizatu** zuela bere diskurtsoa. Joxe Azurmendi

Haren moduek **estilizatzen** eta adimenak ulertzeko biderik ez duen artelan bilakatzen dutelako. Joxan Elosegi

2 (era burutua izenondo gisa)

O, dantza **estilizatua** eta literatura eta erradikalismoa eta psikoanalisia eta hori dena. Lopez de Arana

Egungo erlijio ororen sinbologia **estilizatuak**, behialako bizimin erotikotik hartuak ditu bere irudiak. Patziku Perurena

Makurtuz, ukitu egin zuen -Jaguar V-12 **estilizatu** aerodinamiko bat zen- eta zein zapala zen egiaztatu. Xabier Olarra

Mantel pergamu-kolorean frantses antzinakoak behar duten hitz eta espresio batzuk daude, letra berde **estilizatuz** idatziak elkarren segidan. Anjel Lertxundi

Odola darie letra berde **estilizatuei**, arin egiten du bide odolak hulearen gainean. Anjel Lertxundi

Estilizatuegia zen Schubertena izateko. Anjel Lertxundi

Garcilaso de la Vegarenak oroitzen ditut gogokoenen artean, eta batez ere Bécquer-enak, batzuk zein besteak maitasun-adierazpen sutsu bezain **estilizatuak**, hunkigarri bezain elaboratuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikusmenari esker jabetu zen zintzilik ageri zen haragi zati burumakurra ez zela bere betiko bihotzeko maitea, berea ez zelako erdaindua eta ez zelako horren beltza eta horren lodia eta horren luzea, **estilizatuagoa** baizik, harmoniatsuagoa. Karlos Linazasoro

Beste muturrean, polo haptikoa (ukimenezkoa) dago, hurbileko ikuspenari dagokiona, zeinetan lehentasuna gauzen presentziari, azalera-kualitateari eta horrelakoei ematen baitzaie, batzuetan modu **estilizatuagoan** bada ere. Josu Zabaleta

---

estilizatze *iz* irudikapen grafikoa oinarrizko ezaugarrietara mugatzea.

Biluzte, eskematizatze, **estilizatze** handiena gertatzen da prozesu horretan. Iñaki Iñurrieta

---

estilizazio *iz* estilizatzea, irudikapena oinarrizko ezaugarrietara mugatzea.

Adaren **estilizazioa**, janzki errauskoloreak indartuagoa. Anjel Lertxundi

Estilizazioa hondatzen al dut goiko argibide horiek emanda? Anjel Lertxundi

Kontuan hartu behar da, gainera, eleberri laburra, genero gisa, ipuin luzearen mugakide dela, eta, oro har, berezkoago duela **estilizazio** hori, noski, tarteko genero horrek eleberri luze tipikoak baino. Juan Garzia

Estilizazioak horixe du bere alde: irakurleoi ematen digun zernahitarako askatasuna. Anjel Lertxundi

Sekula karikaturaren gehiegikerian erori gabe halako **estilizazio** markatu bat nabari da, laburrean kontzentraturiko gertakari ez-arrunten pilaketak eragina, besteak beste. Juan Garzia

---

estilo **1** *iz* idazle, artista, eskola edo kideko batek bere adierazpen gaiak eta bideak erabiltzeko era jakina edo berezia; idazlan, artelan edo kideko baten tasunen multzoa, mota estetiko baten barnean sailkatzeko bidea ematen duena; ezaugarri formal sail batek osatzen duen mota estetikoa.

Errealismoa, **estiloa**, ideologia. Josu Zabaleta

Ikonologiaren "iraultza", ordu arteko analisiek ez bezala, irizpide bezala artelan bateko elementu guztiak sinbolikoak direla hartzean datza [...]; elementu horiek guztiak garai baten, **estilo** baten, eskola baten izaera, muina, kulturazko sintomak direla, alegia. Josu Zabaleta

Espresionismoa **estilo** bezala. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Errealismoa joera bat da, jarrera bat, iritzi bat, irudikapenaren definizio partikular bat, beraz, **estilo** jakin batean, eskola batean gauzatzen dena. Josu Zabaleta

Kubismoa bera, jendeak egiaz **estilo** artistiko bikaintzat hartzen badu ere, irudikapen deformatzaile bezala hartzen da. Josu Zabaleta

Film klasiko gehien-gehienetan ikuspen-zentro baten edo biren inguruan eraikitzen da irudia, pertsonaien inguruan maizenik; hainbesteraino, non **estilo** zentratutzat ezaugarritu nahi izan baita **estilo** klasikoa. Josu Zabaleta

Estilo gotikoa, esate baterako, askok beretu zuten XIX. mendean, eta, hala, **estilo** indibidual berriak ez baina garai bateko **estiloak** eratu ziren norberetze horietatik (prerrafaelitak, adibidez). Josu Zabaleta

Anglo-saxoniar filosofia analitikoaren **estilo** guztiz abstraktuan egina. Josu Zabaleta

Garai baten edota eskola baten ezaugarriak adierazten dira, '**estilo** barrokoa", "Luis XVI **estiloa"** edo "Ingres **estiloa"** esaten denean bezala. Josu Zabaleta

3

Azpimarratu beharra dago, nolanahi ere, irudi "sakratua" irudi mota bakanagoa bilakatu dela gaur egun, eta irudikapen **estilo** berri samar bat ere ez dagoela errealitatearen mendetik kanpo. Josu Zabaleta

Argazkiak, zinemak, eta bideoak berak ere, izan dituzte beren argi **estiloak**. Josu Zabaleta

Argazki-**estilo** asko oinarritzen dira denbora inplizituki argazkian txertatze honetan. Josu Zabaleta

4 ***estilo liburu*** *(orobat* ***Estilo liburu****)* idazkera arauak biltzen dituen liburua, komunikabide batentzat idazten dena.

Edozein egunkariren **estilo liburuko** aurreneko orrian batere gaizki emango ez lukeen esaldia. Iñaki Segurola

Estilo liburu baten faltan, inertziak gazteleraren ikuspegia sendotzera garamatza, Egunkarietako **estilo liburuek** huts honen kontra ohartarazten dute. Iñigo Aranbarri

«Ikasliburuetan erabiltzen den hizkerak egokia, ulertzeko erraza izan behar du»; lan horretan laguntzeko, ikasmaterialetako hizkuntzaren egokitasun-irizpideak finkatzeko, Aholku Batzordearen izenean Andres Alberdik **Estilo Liburuaren** lehen atala aurkeztu zuen. Berria - Euskal Herria

El País-en **estilo liburuak** ongi zehazten du zer behar duen izan tituluak. Iñigo Aranbarri

Ondorioa metodoa baino sinpleagoa da ordea: **estilo liburu** baten faltan, inertziak gazteleraren ikuspegia sendotzera garamatza. Iñigo Aranbarri

Lagun iezadazue **Estilo liburua** irakurtzen: "Euskal herritarren euskarazko abizenak euskaraz idatziko dira beti: Garcia Danborenea, Ramon Jauregi, Juan Manuel Egiagarai...". Probintziakeria konstituzioa baino maiteago duten kazeta independenteen **estilo liburua** neureganatuz, existentzialista ere jar ninteke, eta «Euskal herritarrak, gureak ba ote du irtenbiderik?» eta antzeko galdera irudimentsu eta sakonak egin. Iñigo Aranbarri

Kazetari hizkuntza bat sortu egin du, eta, garatu, **estilo liburuaren** bidez. Berria - Euskal Herria

Gogoeta egiten laguntzeko asmoz, Bilgune Feministak **Estilo liburu** ez sexista jarri du komunikabideen eskuetan. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

baina estilo (10); **bakoitzak bere estiloa** (5); **bere estilo** (22); **bere estiloa** (35); **bere estiloan** (12); **bere estiloari** (10); **berezko estiloa** (4); **beste estilo** (22); **beste estilo batean** (4); **beste musika estilo** (5); **bi estilo** (5); **bizitza estilo** (5); **bizitza estiloa** (4); **bizkar estiloko** (7); **bular estiloko** (13); **da bere estiloa** (4); **da estilo** (9); **da nire estiloa** (4); **den estilo** (11); **du estilo** (12); **duen estilo** (8); **duen estiloa** (7); **edo estilo** (8); **egiteko estilo** (4); **egunkaria ren estilo** (6); **egunkariaren estilo** (4); **en estilo** (4); **ere estilo** (4); **estilo aldetik** (15); **estilo ariketa** (5); **estilo ariketak** (14); **estilo arin** (4); **estilo asko** (10); **estilo askoren** (5); **estilo askotako** (9); **estilo bat** (25); **estilo batean** (6); **estilo batekoa** (4); **estilo baten** (11); **estilo bati** (4); **estilo batzuk** (5); **estilo bereko** (4); **estilo berezi** (8); **estilo berezia** (9); **estilo berri** (12); **estilo berri bat** (5); **estilo berria** (9); **estilo berriak** (4); **estilo bezala** (4); **estilo desberdinak** (6); **estilo doriarrean** (9); **estilo eta** (30); **estilo eta teknika** (4); **estilo ezberdinak** (5); **estilo ezberdinetako** (4); **estilo filosofikoa** (5); **estilo guztietako** (9); **estilo hobea** (4); **estilo hori** (8); **estilo horrek** (5); **estilo horren** (5); **estilo horretako** (7); **estilo horretan** (4); **estilo jakin** (10); **estilo jakin batean** (4); **estilo klasikoa** (4); **estilo librean** (7); **estilo liburu** (7); **estilo liburu ez** (4); **estilo liburua** (16); **estilo liburuak** (5); **estilo liburuaren** (4); **estilo nahasketa** (5); **estilo pertsonala** (6); **estilo propioa** (17); **estilo propioa duzula** (5); **estilo ugari** (8); **estilo vasco** (4); **estilo zaharreko** (10); **estilo zaharreko dotorezia** (6); **estiloa aldatu** (5); **estiloa da** (8); **estiloa dauka** (4); **estiloa du** (5); **estiloa edo** (4); **estiloa ere** (5); **estiloa eta** (24); **estiloa ez** (5); **estiloak ere** (5); **estiloan egin** (4); **estiloan ere** (4); **estiloan eta** (12); **estiloaren aldetik** (4); **estiloaren arabera** (5); **estiloari dagokionez** (4); **estiloari eta** (4); **estiloari eutsi** (6); **estiloaz eta** (4); **estilokoak dira** (5); **eta beste estilo** (4); **eta bizkar estiloko** (4); **eta estilo** (65); **eta estilo askotako** (5); **eta estiloa** (16); **eta estiloak** (6); **eta estiloan** (5); **eta estiloari** (4); **euskal estilo** (4); **garai eta estilo** (5); **gure estilo** (4); **hainbat estilotako** (5); **haren estiloa** (13); **metro tximeleta estiloan** (4); **musika estilo** (24); **nire estiloa** (14); **oso estilo** (7); **ren estilo** (6); **tximeleta estiloan** (6); **tximeleta estiloko** (6); **zen estilo** (6); **zuen estiloa** (5); **zure estilo** (4)

estilobato *iz* kolumnata bati eusten dion plataforma.

Behin zimenduak maila bateraino egin ondoren, **estilobatoak** jarri behar dira. Santiago Iruretagoiena

Estilobatoen gainean kolomak egingo dira. Santiago Iruretagoiena

Kapitelak eginda daudenean beren lekuan jarri behar dira, baina ez koloma-ilararekin nibelean jarriz, baizik eta egin behar den doiketa egin ondoren, hau da, **estilobatoari** egin zaion gehiketaren arabera goiko elementuetan ere gehiketa berdina eginez, arkitrabeak proportzioan gera daitezen. Santiago Iruretagoiena

Komeni da altuera desberdineko plintoak jarriz **estilobatoa** erdi parean zertxobait altxatzea, zeren eta erabat sestran jartzen bada, begiari irudituko baitzaio sakonunea daukala. Santiago Iruretagoiena

---

estilografika *(orobat **estilografiko** g.er.) iz* idazluma estikografikoa. ik **idazluma 2**.

Estilografika ireki eta botilatxotik kargatzeari ekin zion. Joxemari Urteaga

Koaderno beltza atera eta bi zutabetan idatzitako izenak kontsultatu ditu **estilografika** erabiliz lerro batetik bestera jaisteko. Pello Lizarralde

Estilografika bat azaldu zen orduan hezurren artean. Koldo Izagirre

Estilografika eskuan zuela, itxitako bidea zabaldu nahian ibili zen, pentsakor, ezkerreko eskuaz bibote luze eta fin haren ezker muturra okertu eta gora bueltatuz. Joxemari Urteaga

Estilografikaren tapoia kiribiltzen ari zela txoriak ikaratu zituen bozina-hotsa entzun zuen kanpoaldean. Joxemari Urteaga

Estilografikaz idatzirik lerro bat: "Egin ezazu nitaz amestxo bat". Gotzon Garate

Paper orri batez eta **estilografika** batez armaturik egongo da, elixir horretatik tanta bat ere galtzen ez uzteko. Josu Zabaleta

Nire ustea osorik egiaztatu zen hurrengo egunean, aitak, labea husterakoan, **estilografikoa** finkatzeko klipa erraustetan aurkitu zuenean. Josu Zabaleta

Gauza batek pozten nau, hala ere: nire **estilografikoa** erraustu egin da, garaia denean niretzat nahiko nukeen bezala. Josu Zabaleta

---

estilografiko ik **estilografika**.

---

estilografo *iz* estilografika.

Oi platinozko lumadun **estilografo**, marraz bitza hire lasterraldi arin eta behaztoparik gabeak ifrentzu satinatuzko paperean glifo alfabetiko haiek. Xabier Olarra

---

estiloso *izond adkor* estiloa duena.

Zure aitaren kapritxo bat izan zen; oso **estilosoa** zen. Iban Zaldua

Dena den, zaila izaten da bereiztea testu bat zergatik ateratzen zaigun **"estilosoa"**, zergatik duen "aire delizius" hori. Ana Urkiza

---

estilotxo *iz adkor* estiloa.

Anasagasti ez da aspaldi agertu, baina hark ere bazuen bere **estilotxoa**... Berria - Harian

---

estima ik **estimu**.

---

estimagaitz *izond adkor* hain estimagarria non ezin baita behar bezala aintzat hartu, ezin baliotsuagoa.

Liburutik liburura dabil, bila eta bila, pazientzia galtzen du, harik eta, azkenik, Bouillet baliotsuak, **estimagaitzak**, erakusten dion arte Baleareetako biztanleak, Antzinatean, ezagutzen zen mundu-zatiko habailari hoberentzat joak zirela. Jon Alonso

---

estimagarri **1** *izond* aintzat hartzekoa, eskertzekoa.

Merkatari erromatarra, bere aurreko merkatari grekoa edo feniziarra bezalaxe, gai zen guztiz Mediterraneoko hirien artean zeuden prezioen aldeaz baliatzeko, eta era horretan kapital **estimagarri** bat osa zezakeen. Koro Navarro

Pieza **estimagarri** hau handia da bere apaltasunean. Berria - Kultura

Azken asteotan hainbat jaialditako partida nagusiak jokatu ditu, eta sanantolinetan «espero ez» zuen aukera **estimagarria** jaso du. Berria - Kirola

Huna etorria, uda betea, turismoak uzten duen uzta **estimagarriarekin**. Herria

Aitak ekartzen zuen hilabete sariari esker -sos idor freskoa, beti **estimagarri** baita!- gure baserrian obra handiak egin zituzten, etxeari, bai kanpoz eta bereziki barnez, modernotasunaren itxura emanez. Daniel Landart

Dena den, orrialde bat osoa Irisarri Ospitalearentzat, hori bera **estimagarri** ditake. Herria

Batzuetan modu kritikoan ikusten da irakasleen lana, baina euren lana oso zaila eta **estimagarria** da. Berria - Harian

Jakin-min [...]: emakumearen adimenaren dohain ez oso **estimagarria**. Xabier Olarra

Aldi berean ordea, adierazle guztiz **estimagarriak** eskaintzen dituzte inbertsio hauen joera handiei eta joera horien osaerari buruzkoak. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estimagarri baita (3); **estimagarria da** (4); **estimagarria den** (4); **eta estimagarria** (4); **gauza estimagarria** (3); **laguntza estimagarria** (3)

---

estimarazi, estimaraz, estimarazten du *ad* estimatzera behartu.

Herri zibilizatu guztiek abantailaz negozia dezakete haiekin: baliorik gabeko gauzak **estimaraz** diezazkiekete, eta horien truke prezio handiko gauzak. Iñaki Iñurrieta

Madrildar bat zen, izenez Pilar oker ez banago, hippy, pasota eta outsider samarra, baina benetakoa, eta "Frantzia" ezagutu behar genuela-eta Baionara eraman gintuena, Iparraldea zapaltzen nuen lehen aldia; nire Moustaki kuttunaren gainetik George Brassens jatorragoa **estimarazi** zidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere burua azkarki **estimarazi** zuen bere lan baliosari esker eta ere beti errespetu handia erakusten baitzioten jainkoa baitan sinisten ez zuten gizon eta emazte heieri. Herria

Gure joko eta ohidurak, kantu, dantza eta gaineratikoak, eta oroz gainetik ontasun guziz paregabea, ez duguna ez aski estimatzen guhaurek ez eta besteri aski **estimarazten**, euskara, gure arbasoen ganikako mintzaira! Herria

estimatu, estima(tu), estimatzen **1** du *ad* aintzakotzat hartu; eskertu.

Estimatzen ninduten beraz. Daniel Landart

1.ª Senarra **estimatzea**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Normala, bestalde, Lizarralde batek lizarrak **estimatzea**. Pello Zabala

Seme, **estimatu** zeure burua neurriz, emaiozu merezi duen ohorea. Elizen arteko biblia

Ikasleen jatorrizko hizkuntza eta kultura **estimatzea**. Berria - Euskal Herria

Maila sozial bertsukoak izateaz gain, argiak, kulturadunak eta literatura **estimatzen** zutenak biak. Ramon Saizarbitoria

Ikasliburua ez estimatzeak beste edozein liburu ez **estimatzea** ekar lezake. Berria - Harian

Afizio horrek baserritarren konformidade sakona ezagutzera ere eraman nau, laborari zentzudunaren filosofia **estimatzera**. Pello Zabala

Estimatua zuten altza, bigun portatzen delako haren mamia, ez du kontrarik egiten. Pello Zabala

Egun luze hauetako eguzki ordu nasaien bero sapatsuen artean, **estimatuko** zuen eta eskertuko euri xarraxtada ahultxoren bat ere. Pello Zabala

Mundua ez dugu ezagutzen bere eduki guztian, are gutxiago dakigu bere handitasuna **estimatzen**, ahalgarria den guztiarekin alderatuz. Ibon Uribarri

Jakintza teologikoa **estimatzen** eta errespetatzen bazuen ere, errezeloz begiratzen zion. Askoren artean

Hauxe da egin zaidan hirugarren emaitza, duen balioan **estimatu** ezin dudana. Imanol Unzurrunzaga

Zeren nekez erdietsia **estimatzen** baita, eta fite erdietsia arbuiatzen. Joan Mari Irigoien

Ez du maite zaldiaren indarra, ez du **estimatzen** gizakiaren bizkortasuna. Elizen arteko biblia

Beste gauza bat da nik meteorologoei gehien **estimatzen** diedana: apaltasuna. Joxerra Garzia

Ez dute **estimatzen**; lausengatzen dute ordea. Jon Muñoz

Estimatuko niake hi ere etortzea, alkate moduan. Koldo Biguri

Barkatuko (edo **estimatuko**?) ahal dit Motzak. Patziku Perurena

Hauetako batek -Jeronimo izenekoa, zaldun jakintsu eta zuhurra, herrian oso ezaguna eta **estimatua**- zalantzak zituen zauri sakratuei buruz, Tomas bezala sinesgogor. Askoren artean

Pistamiglio jauna, bada, sailburu ezin hobe bat zen, ez jada gaztea, ezkongabea, zentzuduna oso, guztiek **estimatua**. Juan Garzia

Berehala izan zuen arrakasta liburu honek (1908an alemanez argitaratu zen), eta hala zegoen Mach-en, Einstein-en eta Vienako Zirkulukideen **estimatueneratikoen** artean, gerora "ahaztua" izan bada ere oraintsu arte. Askoren artean

-Oporrak hartu gabea nauk oraindik, eta **estimatua** zagok. Aingeru Epaltza

2 (adizlagunekin)

Asko **estimatzen** da euria laborarien artean: Urtarrila euritsu, urtea dirutsu. Pello Zabala

Diruak eta simaurrak balio bera zutela eta berdin **estimatu** behar zituztela. Askoren artean

Ordutik aurrera, Daniel oso **estimatua** izan zuen herriak. Elizen arteko biblia

Kantauriko itsas alde osoan ere, Kantabria eta Asturias aldetik batik bat, oso **estimatua** omen zuten lizar-hostoa. Pello Zabala

Nire asmoa biharamun goizean alde egitea zen, laster lekutzea, ez bainintzen oso **estimatua** sentitzen etxe hartan. Fernando Rey

Nola aitona Nikolasek, arestian erran bezala, biziki **estimatzen** baitzuen gure apez don Frantzisko, hala izendatu zuen hura Mattin eta bion prezeptore. Joan Mari Irigoien

Mamu Heinrich Heine (1797-1856) poeta eta satira-idazle alemana, AB-k franko **estimatzen** zuena. Xabier Olarra

Bellerocheko zaldunak nik nahi nukeen baino askoz ederrago dauka; eta, arrazoi askorengatik, txit **estimatuko** nuke harekikoak egiteko estakuru bat Eta elurra bera ere anitz **estimatua** zizuten; atsotitz hauxe lekuko: Otsaileko elurrak ongarri hoberena balio du. Jon Muñoz

Gure aroak baino VI. mende lehenagoko poeta siziliarra, Stesikoro Himerakoa, arras **estimatua** izan zen aintzinate guzian. Patziku Perurena

Egilea ulerbera agertu zen, beste alde batetik iruditu zitzaidan arront **estimatzen** zaituela. Jon Alonso

Orain zehazki ezagutu behar ditugu arrazoimen hutsaren erabilera transzendentala, bere printzipioak eta ideiak, horrela arrazoimen hutsaren eragina eta balioa egokiro determinatu eta **estimatu** ahal izateko. Ibon Uribarri

Nago gure herri honetan irla bakarti gehiegi ez ote dagoen, eta alferrikako euria zinez **estimatuko** duen naufrago ez gutxiago. Joxerra Garzia

Badakizu zenbat **estimatzen** dudan nik zigarro bat; bada, hauxe da dudan zigarro bakarra, begira zer egingo dudan. Koldo Biguri

Izugarri **estimatzen** dizut eskaintza, nolanahi ere. Mirentxu Larrañaga

Ikaragarri **estimatzen** dizut. Mirentxu Larrañaga

Ona zen lanean, eta oso **estimatua** laguntzat. Xabier Olarra

3 (era burutua izenondo gisa)

Oso gizon **estimatua** zen Ordenan eta Ordenaz kanpo. Askoren artean

Eskergaiztoko portatzen bada ere, Txantxangorria du kukuak lagun **estimatuena**. Pello Zabala

Generorik eta libururik **estimatuenak** (nobelaren nagusitasuna, poesiaren estimazio urria...). Berria - Kultura

Deiturarik ere ez diote jarri, gertukoa eta **estimatua** zelako, osaba Tom bezala, Raimundo, berea zen putzu batetik uzten zien edaten, ez zuen deiturarik behar. Harkaitz Cano

Aberatsa ninduan eta **estimatua**, hogeita hamar urte nitian, bizitzak desira nezakeen guztia eskaintzen zidaan. Xabier Olarra

Ospitalitatea bertute **estimatua** eta lege onekoa zuten beti Ekialdean. Pello Zabala

Aberats izan nahiz behartsu, noble nahiz xume, arbuiatu nahiz **estimatu**, zuhur nahiz sinple eta ezjakin, kleriko nahiz laiko. Askoren artean

Lagungarri zetorkigun ardoak ez zigun kalterik egin, are gutxiago auhariaren bururatzeko jazarri zitzaigun etxe gasna **estimatuak**. Itxaro Borda

Korrejidore jaun txit **estimatua**: [...]. Anjel Lertxundi

4 kopuruei edo tamainei buruz, zenbatekoa, aipatzen dena edo antzekoa dela uste izan; gutxi gorabehera kalkulatu. ik**jo 14**.

1,3 milioi eurotan **estimatua** dute ontasuna estatuko adituek, gero alokairuan uzteko enpresari. Herria

Zure bihotzari dagokio mendeku horren hedadura **estimatzea**. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiskide estimatua (3); **ainitz estimatu** (7); **ainitz estimatu dutena** (3); **ainitz estimatua** (3); **ainitz estimatzen** (12); **ainitz estimatzen zutena** (4); **anitz estimatzen** (4); **asko estimatu** (7); **asko estimatuko** (4); **asko estimatzen** (41); **asko estimatzen dut** (6); **asko estimatzen dute** (3); **baina estimatuko** (5); **baino gehiago estimatzen** (5); **bat estimatzen** (4); **batere estimatu** (3); **batere estimatzen** (3); **behar bezala estimatzen** (4); **benetan estimatzen** (5); **berak gehien estimatzen** (4); **bereziki estimatzen** (3); **bezala estimatzen** (8); **biziki estimatu** (3); **biziki estimatua** (3); **biziki estimatzen** (32); **biziki estimatzen baitzuen** (4); **biziki estimatzen dituzte** (4); **biziki estimatzen dute** (3); **biziki estimatzen zuen** (4); **burua estimatzen** (3); **denek ainitz estimatzen** (7); **denek estimatua** (3); **denek estimatzen** (4); **denetaz estimatua** (5); **denetaz estimatua eta** (3); **edo estimatzen** (3); **ere biziki estimatzen** (3); **ere estimatu** (5); **ere estimatzen** (7); **estimatu behar** (6); **estimatu du** (4); **estimatu dut** (3); **estimatu dute** (8); **estimatu dutena** (4); **estimatu egiten** (8); **estimatu eta** (13); **estimatu izan** (4); **estimatu nion** (3); **estimatu zuen** (7); **estimatua baitzen** (3); **estimatua da** (12); **estimatua dago** (3); **estimatua den** (4); **estimatua du** (3); **estimatua eta** (10); **estimatua eta maitatua** (6); **estimatua izan** (16); **estimatua izan da** (4); **estimatua izan ohi** (3); **estimatua sentitzen** (3); **estimatua zagok** (3); **estimatua zela** (3); **estimatua zen** (14); **estimatuak diren** (3); **estimatuak ziren** (3); **estimatuenetako bat** (3); **estimatuko du** (3); **estimatuko nizuke** (9); **estimatuko nuen** (4); **estimatuta dago** (5); **estimatzen baitzuen** (5); **estimatzen da** (14); **estimatzen den** (4); **estimatzen diat** (7); **estimatzen diot** (5); **estimatzen ditu** (9); **estimatzen dituen** (3); **estimatzen ditugun** (3); **estimatzen dituzte** (7); **estimatzen dizut** (27); **estimatzen du** (15); **estimatzen dudan** (7); **estimatzen duela** (3); **estimatzen duen** (11); **estimatzen duena** (4); **estimatzen dugu** (4); **estimatzen dut** (16); **estimatzen dute** (19); **estimatzen dutela** (4); **estimatzen duten** (10); **estimatzen dutena** (4); **estimatzen eta** (8); **estimatzen ez** (11); **estimatzen ikasi** (3); **estimatzen ninduen** (3); **estimatzen nituen** (3); **estimatzen nuen** (7); **estimatzen zaitut** (3); **estimatzen zen** (4); **estimatzen zituen** (6); **estimatzen zuela** (6); **estimatzen zuen** (22); **estimatzen zuena** (7); **estimatzen zuten** (14); **estimatzen zutena** (5); **eta estimatu** (6); **eta estimatua** (26); **eta estimatzen** (23); **eta estimatzen dizut** (3); **eta gehiago estimatzen** (4); **eurotan estimatua** (5); **ez estimatzea** (3); **ezagun eta estimatua** (3); **ezaguna eta estimatua** (5); **ezagutua eta estimatua** (6); **gain gainetik estimatzen** (3); **gainetik estimatzen** (6); **gehiago estimatuko** (6); **gehiago estimatuko du** (3); **gehiago estimatzen** (18); **gehiegi estimatzen** (6); **gehien estimatu** (3); **gehien estimatzen** (16); **gehien estimatzen zuen** (3); **gehienik estimatzen** (3); **gizon estimatua** (4); **gizon estimatua zen** (3); **gutxien estimatzen** (3); **guziz estimatua** (5); **guztiak estimatzen** (3); **hain estimatuak** (4); **hainbeste estimatzen** (10); **hainbeste estimatzen zuen** (3); **hori estimatzen** (5); **horregatik estimatzen** (4); **ikaragarri estimatzen** (4); **izugarri estimatzen** (6); **jaun**

estimatu (3); **jendeak estimatzen** (3); **oso estimatua** (16); **oso estimatua da** (3); **oso estimatua izan** (3); **oso estimatuak** (5); **sendagile estimatua** (3); **zen estimatua** (3); **zenbat estimatzen** (5); **zinez estimatzen** (4)

---

estimazino ik **estimazio**.

---

estimazio *(orobat **estimazino** g.er.)* **1** *iz* aintzakotzat hartzea; estimua.

Jainkoa goresten zuten, eta herri osoaren **estimazioa** zuten. Elizen arteko biblia

Gure **estimazioa** izango luke, hasteko, eta baita, seguru asko, ondoko belaunaldiena ere. Berria - Harian

Egun Europan nobela historikoa lantzen duten idazleen artean, gutxi izango dira Vincenzo Consolok (Militello, Sizilia, 1933) duen ospea, onespena eta **estimazioa** dutenak. Berria - Kultura

Mirespena eta **estimazioa** zietek, baina ez dituk haietaz fidatzen. Xabier Olarra

Imajinatu nuen, hala ere, Solowejczykek **estimazioa** zidala, maite ere ninduela. Matías Múgica

Hala eta guzti ez zait inoiz damutu, hain aberatsak izan baitira zazpi urte horiek era guztietako ikasbideetan, hain handia presozainei nien **estimazioa**, eta hain oso-osokoa kartzelako zuzendariari nion begirunea. Eskarne Mujika

Adiskidetasunak asko balio dik, egiozue **estimazioa**. Xabier Olarra

Zatitxo bat hartu zuen, **estimazioa** egiteko, eta gainerakoa etxekoekin jateko agindu zion. Askoren artean

Hankapalok jende artean zeukan **estimazioa** eta bere tabernaren arrakasta ikusita, edonork pentsatuko luke herrikoxeme betidanikoa zela bera. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrek hunkitu egin ninduen, eta jende harekiko **estimazioa** piztu zidan. Jon Maia

Estimazioa zor diot nik txantxangorriari. Patziku Perurena

Estimaziora iristeko ezagutzatik pasatu behar dela esan berri dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Euskaldunek, egiazki, ez diete emakumeei behar bezalako **estimaziorik** gordetzen; ozta iruditzen zaizkie eginkizun apalenetarako gauza. Koldo Izagirre

Giro haretan, trikitilarien **estimazinorik** ezin falta, leihaketak eta antzekoak nahinon zirala. Xabier Amuriza

Ofizioaren aje tristea, idazlanak **estimaziorik** ez jasotzea. Ana Urkiza

Penaturik segitzen zuen bere koinatu Guglielmo Ferreroren lanek ez zutelako erdietsi Italian, faxismoa bukatuta, zor zitzaien **estimazioa**. Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gurean, gorostiak, gorosti-makilak batez ere, bere kozkor eta guzti, **estimazio** handia izan du. Pello Zabala

Bertsolari artistok **estimazio** handia zioten kukuari: Enbeita Urretxindorrak ere seinalatzen baitzuen Areatza aldean, itsasotik gertu: [...]. Pello Zabala

Konbertitzen ez zirenentzako onbideratzeko tresna gisa sekula ez zen bereziki eraginkorra izan, eta gaur egun **estimazio** txikia du. Xabier Olarra

Ulertzekoa da, nik uste, gelakoek Anderri genion **estimazio** eskasa. Iban Zaldua

Hango erakusmahaian, ibilbideak erakusten dituzten gida eta liburuez gain, kale-mapek, postalek eta posterrek oso **estimazio** ona izan dute Azokaren bisitarien artean. Berria - Kultura

Gai honen inguruan hainbeste aipatzen den Cervantesek berak **"estimazio** berezia" omen zion euskal jendeari. Bernardo Atxaga

Gaztelako ordoki garai eta errean, aparteko **estimazioa** du ilgoratik ilbehera bitarteko ilargiaren argiak, zenbait labore eta ehizako koxka batzuk ere gauzatzeko. Pello Zabala

Orkolaga maisuak eta bere eguraldiarekiko "sistema" aipudunak egundoko **estimazioa** lortu zuen Kantabria parteko arrantzaleengan lehenbizi, baina ez txikiagoa barrualdeko baserritar koitaduengan. Pello Zabala

Ikusten da zenbateko **estimazioa** izan duen santa argitsu honek. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Ohiko **estimazio** neurri onartuak artifizial, arbitrario eta engainagarriak baitira. Xabier Olarra

Ez zion Martaren itxurazko **estimazio** ezari kasu gehiegirik egiten. Harkaitz Cano

4 kopuruei eta kidekoei buruz, gutxi gorabeherako kalkulua.

Errumanian dira azken egunotako uholdeen ondorioak garestien izango, baina oraingoz goiz da **estimazioak** egiteko. Berria - Mundua

Gure **estimazioa** da 15.000 alerekin Donostiako euskaldunen %70engana iritsiko ginatekeela. Berria - Harian

Erosahalmenaren parekotasunen truke-tasetan neurturik, garapen-bideko herrialdeek BPGean zuten ehunekoa %40 zen 1999an, NDFaren **estimazioen** arabera. Koro Navarro

Egin diren **estimazioen** arabera, Mexikon bakarrik, hogeita bost bat milioi biztanle ziren Cortés iritsi aurretik. Koro Navarro

Ez dago datu orokor fidagarririk hildakoei dagokienez, baina zenbait **estimazioren** arabera 10.000tik 30.000 bitartean izan dira hildakoak. Berria - Mundua

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eginiko **estimazio** batzuen arabera, bertan bizi diren etorkinen %68 A ereduan matrikulatzen dira, %17,9 B ereduan, eta %13,5 D ereduan. Berria - Euskal Herria

Garapena beren baliabide naturalen **estimazio** hobean oinarrituta bultzatzeko itxaropena zuten nazioak [...] guztiz baztertuak geratu dira nazioarteko harreman ekonomikoetan, eta bazterketa horren ondorioak, barne-politikan nahiz gizartean, oso kaltegarriak izan daitezke. Koro Navarro

Ordea, nekeza da esatea, ekonomian zuzeneko eta zeharkako efektuen eragina zaila baita aurreikusten, eta sarritan datuak **estimazio** linealetan oinarritzen baitira. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estimazio berezia (3); **estimazio handia** (9); **estimazio handirik** (3); **estimazio hori** (3); **estimazioak egiteko** (3); **estimazioen arabera** (9); **eta estimazioa** (3); **zenbateko estimazioa izan** (3)

---

estimaziodun *izond* estimazioa edo estimua duena.

Baina, udatik negura bitarteko zurubi luze horretako giro egonkortasunik gabea eta aro ezinegonez jantzia nola den hau, ia segido etorri ohi da epelalditxo **estimazioduna**: udazken loretxoen epelaldia deitzen zaio tarte lehor gozo horri. Pello Zabala

---

estimaziotxo *iz adkor* estimazioa.

Beraz, nire bakearen amoreagatik eta zuri nizun **estimaziotxo** hori pikutara ez bidaltzearren, ez nizun ezer esan. Xabier Mendiguren Elizegi

---

estimu *(orobat **estima** g.er.)* **1** norbaitekiko xamurtasunezko sentimena.

Banuen **estimu** haietarik batentzat, fede heldu eta sano bat agertzen zigulakotz. Piarres Aintziart

Ontsa konprenitu badut **estimu** eta errespetu oneko gizonak dira, eta berdin emazteak, Frantsesenean hazten direnak, beste edozein ofiziotakoari zorrik gabeak. Herria

Hiru liburu euskaraz idatziak eta erran daiteke **estimu** bazuela gure mintzairarentzat. Xipri Arbelbide

Haurrak izatea emakumearen betebeharra delako kontzeptu hori erabat aldatuko da, nik uste, datorren mende honetan, eta miresmena eta **estimua** izango dira karga hori. Josu Zabaleta

Erabat atxikirik daude beren errito, praktika eta arau-zaintzari, atxikimendu hau gainerako gauzen aurretik jartzen dute, eta horrela egiteagatik begirunea eta **estimua** eskatzen dute. Joan Mari Lekuona

Hortarik ageri da nolako **estimua** ekarria zitzaion Beskoiztar apez horri. Herria

Josek, bada, Potifarren **estimua** irabazi zuen, eta honek bere zerbitzurako hartu eta etxezain egin zuen eta ondasun guztien arduradun. Elizen arteko biblia

Hain buru argiz gobernatzen zen kontu orotan, ezen bere aurreko guztiek baino bi aldiz gehiago irabazten baitzuen; eta gainera, hiritar guztien **estimua** bereganatu zuen. Jose Morales

Han arrakasta izaten baitzuten beste mutiko batzuei lapurtzen trebeak zirenek, eta baita fraileen **estimua** lortzen zutenek ere haientzat zelatari lana eginez. Pello Lizarralde

Estimua baino gartsuagoa zen sentimendu batez gainezka zeuden haien bihotzak. Lopez de Arana

Estimua zioten bai ugazabak bai lankideek haren lanari, iaioa baitzen fresagailuarekin. Anjel Lertxundi

Jende zentzudunaren **estimua** galdu zuen, eta beldurtiak izutzea ere lortu zuen. Karlos Zabala

Oroz gain egiozu kontu, adiskide gaztea, batzuetan aski dela, **estimu** hori galtzeko, hura aintzat behar bezainbat hartu ez izanaren iduria egin izana. Jon Muñoz

Estimu hori hilaren 30ean erakutsiko diote Azkoitian egingo dioten omenaldian. Berria - Kultura

Pertsona batek, edo bik, bizitza duintasunez bizitzea galarazteraino geure buruarenganako **estimua** mintzen digutenean, zauria hain duk sakona, non heriotzak berak ere ezin baitio bukaera eman tormentu horri. Xabier Olarra

Zalakain eta tenientea bero-bero aritu ziren Espainian horren maiz aditzen diren norberaren eskualdearen **estimuak** eragindako eztabaida horietako batean. Koro Navarro

Diruaren aldean badu gizonak beste ontasun bat, beste balio eta **estimurik** merezi duena: gure lurra, gu sortu gaituen lurra bere mamitik bizia eman daukuna. Herria

Azken batez, Soriarekin sekulakoa izan berri zian atsoa zela kausa, eta Urtxipia **estimuan** zian. Aingeru Epaltza

Apala bere portaeran, apalagoa zen bere iritzian eta guztiz apala bere buruaren **estimuan**. Askoren artean

Gaur, parekotzat dauka, **estimuan** hartu du. Itziar Otegi

Jendearen **estimutik** datozen plazerak, Eugeni, plazer moralak, hutsak dira, banaka batzuei baino komeni ez zaizkienak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Trieste izaki Austriarren inperioak hegoaldean zuen ia itsas ate nagusia, inperioaren babes guztia zeukan portuak [...], **estimuzko** garai loriatsu haien xarma dute hiriak eta hiriko eraikuntzek. Anjel Lertxundi

2 (izenburu eta izenlagunekin)

Estimu handia erakutsia izan zaion bezela. Peter harritu samar zegoen oraindik ere bere gurasoei **estimu** handirik ez diegulako. Herria

Estimu handitan nuke orain zauden bezala gehiago tristeturik ez egoteko begirunea zuk halaber agertuko bazenit. Jon Muñoz

Badakizu oso **estimu** handian zaitudala eta beti horrela izango dela. Lopez de Arana

Estimu handitan neukan, zinez, eta ziur nago gizon baliagarria izango dela egunen batean. Jose Morales

Estimu apartekoa zion zenbait debozio bereziri. Askoren artean

Harrigarriena, hala ere, bere soraiotasuna gertatu zen, zeren ez baitzuen begikotasun edota **estimurik** ttikiena ere erakutsi. Patxi Zubizarreta

Elkartea ongi zuzentzen duten arduradunek **estimu** bikoitza merezi dute, prediku- eta irakaste-lanetan ari direnek batik bat. Elizen arteko biblia

Estimu gehiegizkoa izan diozun arropa bat baztertuta baino arinago sentitzen naiz. Anjel Lertxundi

Zeramatzan gauzei nolabaiteko **estimua** hartu zien, agian hain bidaia luzea eta neketsua beraiekin egin zutelako. Agustin Otsoa

Nire gogoan, bai, aldatu da, harenganako **estimua**, lehengoa eta oraingoa, ezberdina baita. Imanol Unzurrunzaga

Adin berekoak ziren eta etengabeko harremanez sakonduriko elkarrenganako **estimuak** konfiantza ematen zion Frantziskori bere barne-sekretuak lagunari agertzeko. Askoren artean

3 estimazioa, kopuruei eta kidekoei buruz, gutxi gorabeherako kalkulua.

Astelehenean ikertzaileek egin **estimu** baten arabera, Bizkaiko Golko hortan gutienetik hamar mila tona petrolaki badira uhainek erabilki! Herria

Legezko **estimu** bat egin berria zela, prezio xuxena miliun bat eurotarat ez arras heltzen. Herria

Lehen **estimu** baten arabera, balitake miliun bat euroren obra egiteko. Herria

Lehen **estimuetan** 500 000 euro kostako dira, eta Claude Olive axuantak erran duenaz, hiru hizkuntzetan ezartzeak faktura 20 000 euroz emendatuko du. Herria

4 ***estimutan*** *adlag*

Eta badaki, halaber, bezeriak oso **estimutan** izaten dituela zerbitzu bereziak, espezialduak, arrunkeriari ihes egiten diotenak. Anjel Lertxundi

Estimutan daukan gonbidatu baten zain dago Michel bere etxeko jangelan, jakiz betetako mahai eder baten aurrean. Anjel Lertxundi

Estimutan zauzkat, berorrek badaki hainbeste, baina ez horretaraino. Anjel Lertxundi

5 *auto-estimu* ik **autoestimu**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitak estimu (3); **auto estimua** (4); **auto estimuaren** (3); **bazioten estimurik** (3); **bere buruarenganako estimua** (3); **bere estimua** (4); **buruarenganako estimua** (6); **du estimu** (4); **ere estimu** (5); **ere estimu handia** (3); **estimu baten** (4); **estimu baten arabera** (3); **estimu bizia** (3); **estimu eta** (11); **estimu gehiago** (3); **estimu handia** (25); **estimu handia diot** (4); **estimu handia diote** (3); **estimu handiagoa** (5); **estimu handian** (18); **estimu handian zuen** (3); **estimu handirik** (5); **estimu handitan** (44); **estimu handitan daukat** (3); **estimu handitan izan** (4); **estimu handitan zeukaten** (3); **estimu handitan zuen** (5); **estimu haunditan** (3); **estimu hori** (4); **estimua ere** (3); **estimua eta** (11); **estimua galdu** (7); **estimua irabazi** (4); **eta estimu** (16); **eta estimu handia** (5); **eta estimu handitan** (5); **eta estimua** (4); **hain estimu** (7); **inoren estimua** (3); **lehen estimu** (3); **lehen estimu baten** (3); **nik estimu** (3); **oso estimu** (7); **oso estimu handian** (3); **oso estimu handitan** (3); **zer estimutan** (4); **zuen estimu** (3)

---

estimulagarri *izond* estimulatzen duena, gogo-pizgarria.

Eragin **estimulagarria** du horrek; beren buruari esaten diote: agian neuk ere, egunen batean... Jon Alonso

Idahok, Wyomingek bezala, ehizarako eta arrantzurako leku bikainak zituen, eta Kubako udagoieneko haizete hezeekikoan aldaketa **estimulagarria** zen. Edorta Jimenez

Ametsetan ari gara, pentsatuko zuten, eta lo jarraituko zuten, usain dudarik gabe **estimulagarriez** beteriko munduak inguraturik, usain **estimulagarriak**, bai, baina ez bat-batean iratzarrarazteko bezain premiazkoak, ez mehatxua edo izuaren usain nahastezinak bezain premiazkoak, esatera, bi adibide funtsezko baizik ez emateagatik. Jon Alonso

---

estimulante *iz* gai estimulagarria, gogo-pizgarria.

Ekainaren 21ean eman zuen positibo, modafinil izeneko **estimulantea** erabili eta gero. Berria - Kirola

Lehenengo aldian ere **estimulante** bat hartzeagatik eman zuen positibo, orain dela 11 urte, junior mailako AEBetako txapelketetan. Berria - Kirola

---

estimulatu, estimu(la), estimulatzen **1** du *ad* funtzio organikoez mintzatuz, aktibarazi.

Aurrerapauso handi bat gertatu zen hogeigarren mendearen hasieran, gizaki bizi baten garuna **estimulatu** ahal izan zelarik. Irene Aldasoro

Obrak, beraz, esan ez ezik, irakurlearen gogoetamena **estimulatu** behar du. Xabier Amuriza

Menderatzen ez duzun hizkuntza batean irakurtzeak badu abantaila bat idazle batentzat: irudimena **estimulatzen** du. Harkaitz Cano

Emakumeek badakite ez dutela zertan eredu maskulinoari jarraitu, ondo asko baitakite plazerik handiena ez dutela bagina **estimulatuz** lortzen, baizik eta klitoria laztanduz. Luis Elberdin

Neurona **estimulatu** duen hasierako seinalea handia bazen, maiztasun handian igaroko dira bulkadak axoian zehar. Irene Aldasoro

Emakumeak egingo du gero tratamendua, obulazioa **estimulatzeko**. Berria - Harian

Garuneko zelula multzo bat elektrikoki **estimulatuz** gogoratzen diren oroitzapenak ez galtzea. Irene Aldasoro

Argi gorriak bortizki **estimulatzen** ditu gorrirako sentiberak diren zuntzak. Xabier Olarra

Elektrorretinogramak, argiz **estimulatutakoan** zer jarduera elektriko dagoen jasotzeko diseinatuak, erabat lauak ziren. Xabier Olarra

Halako oroitzapenak operazio-gelan ere sorraraz daitezke, baldin eta operatzean elektrodo bidez **estimulatzen** bada lobulu tenporaletako alde ukitua. Xabier Olarra

Klitoria tinko eta modu iraunkorrean **estimulatu** behar da, goitik behera eta biribilak eginez. Luis Elberdin

Kaltzio ioien mugimendua **estimulatzen** duen eta, horren ondorioz, muskulu-zuntzaren uzkurtzea eragiten duen substantzia kimiko bat da azetilkolina. Irene Aldasoro

Ikusi zuten gayen arteko harremanetan ere berdin gertatzen dela, hau da, denbora asko igarotzen dutela elkarri titiburuak **estimulatzen**. Luis Elberdin

Gizakiak, bere izaitea autonomo eta arduradun garatzeko, bere funtsezko beharrak bete behar ditu: hauek dira **estimulatua** izaitea, ezagutua eta denboran egituratua. Herria

· Sarrera: lanaren hasierako zatia da eta irakurlea **estimulatu** behar du irakurtzen jarrai dezan. Askoren artean

2 (era burutua izenondo gisa)

Mendebaldeko Kristandadearen mugetan bere historiako lehen atalean, bi barbaro-talde hain **estimulatuak** izan ziren, ezen beren zibilizazio lehiakideak garatzen hasi baitziren, baina ernamuinetan zeudela moztu zituzten. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estimulatu behar (6); **estimulatuz gero** (3); **estimulatzen du** (5); **estimulatzen duen** (3); **klitoria estimulatuta** (5); **klitoria estimulatzen** (5)

---

estimulatzaile **1** *izond* estimulatzen duena.

Duela mende erdi bat jakin zen argi zurizko puntu bat erregistratzen duela begiak ikusmen-kortexaren gaina elektrikoki estimulatzen denean; elektrodo **estimulatzailearen** kokapenarekin loturik dago puntuaren ustezko posizioa. Irene Aldasoro

Musika egiteko bide «**estimulatzailea**» da haien irudiko, guztiz berriak zaizkien obrak interpretatu behar dituztelako. Berria - Kultura

Apetitu **estimulatzailea**: TCHak hartzaile gehienengan jateko gogoa areagotzen du. Berria - Harian

2 *iz* zerbait estimulatzen duen gaia.

Estimulatzaileek ez dute konpontzen arazoa. Berria - Gaiak

Milioiak dira AEBetan eta Europan **estimulatzaileekin** trataturiko umeak, eta preskripzioa kontrolez kanpo dagoela diote adituek. Berria - Gaiak

Horregatik ematen dizkiete sendagileek **estimulatzaileak**, haien bitartez aktiba dezaten garunazala, horrenbeste mugitu beharrik gabe. Berria - Gaiak

---

estimulazio **1** *iz* estimulatzea.

Norberaren zainketa, fisioterapia, musikoterapia, zentzumenen **estimulazioa**. Berria - Euskal Herria

Estimulazioaren arabera moldatzen eta garatzen da. Berria - Gaiak

Dioenez, **estimulazioa** eta loa dira burmuina garatzeko eta gazte gordetzeko sekretuak. Berria - Gaiak

Klitoriaren **estimulazioak** eragiten didan sentipen fisikoa plazer handikoa da, zirraragarria esango nuke. Luis Elberdin

Koitoak ere oso sentipen atsegina sortzen dit, baina klitoriaren **estimulaziotik** sortutakoa baino leunagoa da. Luis Elberdin

Estimulaziorik gabe, ez dago eszitaziorik. Luis Elberdin

Kontakturik ez dagoenez, **estimulaziorik** ere ez dago. Luis Elberdin

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estimulazio intelektualaren haustura ote da hau? Xabier Amuriza

Batzuetan, memoria-hutsarte bat edo amets bat eragiten du **estimulazio** elektrikoak. Irene Aldasoro

V4 aldearen **estimulazio** magnetikoaren bidez sor daiteke esperimentalki kolorea, eta eraztun eta halo koloretakoak -kromatofen deritzetenak- "ikusaraz" daitezke hala. Xabier Olarra

Estimulazio goiztiarrari buruzko ikastaroa ere izango da egun beretan. Berria - Kultura

Koitoa egiterakoan, gizasemeak **estimulazio** zuzena, indartsua eta eraginkorra jasotzen du bere alde sentikorrenean, hau da, zakilaren mokoan, edo glandean. Luis Elberdin

Batzuetan, aldizkakoa baino ez da izaten taupada-markagailu naturalaren matxura, eta arriskugarria izan daiteke **estimulazio** jarraitua. Irene Aldasoro

Egoera eta denbora egokian egiten den **estimulazio** egokiaren ondorioa da orgasmoa. Luis Elberdin

Horregatik, **estimulazio** sexualak izan behar du errepikakorra, Bibrakorra, bizia, erritmikoa eta etengabea. geroago, berriz hartuko dugu fantasia hori, baina orduan **estimulazio** autoerotikoarekin batera. Luis Elberdin

Zahartzaroaren ajeen kontrako borroka modurik hoberena etengabeko **estimulazioa** da. Berria - Gaiak

Emakumeak disfrutatu egiten du -eta joan egiten da- klitorian zuzeneko **estimulazioa** jasotzen badu. Luis Elberdin

Nerbio bukaera eta ukipen errezeptorez beteta dagoenez, estalgarri batek babestua dago, ustekabeko kolpeak edo bat-bateko **estimulazioak** leuntze aldera. Luis Elberdin

Animalia guztien garun-sistemak deblauki itxiz erantzun liezaioke gehiegizko puntu kritiko batez haraindiko **estimulazioari**. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan)

Halaxe da beti, **estimulazio** iturria edozein dela. Luis Elberdin

Zelula batzuk **estimulazio**-egoera iraunkorrei erantzuten espezializatuak, eta besteak **estimulazio**-egoera iragankorrei erantzuten espezializatuak. Josu Zabaleta

· Ikusmen-kortexeko gainerako aldea, ikus-**estimulaziorik** gabe, oso gutxi garaturik egon liteke. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duen estimulazioa (3); **estimulazio egokia** (3); **estimulazio sexualak** (4); **estimulazio zuzena** (3); **estimulazioa askoz** (3); **estimulazioa eta** (3); **klitoriaren estimulazioa** (4); **klitoriaren estimulazioa askoz** (3); **klitoriaren estimulazioak** (6)

---

estimulo ik **estimulu**.

---

estimulu *(orobat **estimulo** g.er.)* **1** *iz* estimulatzea.

Baginako paretetan ez dago ferekaren **estimulua** jaso eta hori eszitazio sexual eta plazer bihurtzen duen sentimen errezeptorerik. Luis Elberdin

Izan ere, zentzumenen **estimulurik** gabe -eta hor ukimena oso kontuan hartzekoa da- gauza ez doa aurrera, sua itzali egiten da. Luis Elberdin

Estimulua indartzen bada, lehengo tamaina gordetzen dute bulkadek, baina maizago gertatzen dira. Irene Aldasoro

Garunaren egitura **estimuluen** arabera aldatu egiten da. Berria - Gaiak

Eszitazio sexuala hainbat **estimulurengatik** gerta daiteke, eta **estimulu** horiek izan daitezke ukimen, ikusmen, irudimen, usaimen eta abarrekoak. Luis Elberdin

Bulkada bakoitzaren ondoren, nerbioa desaktibaturik geratzen da segundo baten milaren batean, eta denbora horretan ez dio beste ezein **estimuluri** erantzuten. Irene Aldasoro

Gaizki interpretatutako **estimulu** bati erantzun automatiko okerrak ematen zizkionagu. Anjel Lertxundi

Haien bizimoduak nireak ez bezalako xarma zeukala iruditzen zitzaidalako, abentura, misterio, pizgarri eta **estimulu** gehiago. Xabier Mendiguren Elizegi

Pavloven erreflexologian oinarrituta, Eisensteinek uste zuen erantzun bat eragiten duela **estimulu** bakoitzak. Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Garunak metodo eraginkorrak baititu **estimulu** indartsu bat agertzen denean sentikortasuna gutxitzeko. Irene Aldasoro

Onena izaten da jolas erotikoa modu leunean hastea, **estimulu** samurrekin, eta gero, arian-arian, **estimulu** grinatsuagoak eta mugituagoak gehitzea. Luis Elberdin

Nerbio bati **estimulu** jarraitu bat aplikatzen zaionean, erantzuna ez da jarraitua izaten, bulkada laburren segida bat baizik. Irene Aldasoro

Horretarako, ukipen errezeptoreak garatu zituzten [...] eta horien nerbio bukaerek bulkada elektriko bihurtzen dituzte **estimulu** mekanikoak. Luis Elberdin

Estimulu sexualak berehala iristen dira bizkarrezurreko muinera eta burmuinera. Luis Elberdin

Ematen zuen orainean baino ez zela bizi, inguruko **estimulu** une-unekoei erantzun baino ez zuela egiten. Xabier Olarra

Substratu fisiologikoa; substratu horrek "premia egoera" sortzen digu eta kanpoko **estimuluak** jasotzeko eta jarduera sexualerako gertu uzten gaitu. Luis Elberdin

Musuak ukimenezko **estimuluak** dira. Luis Elberdin

Zinemako irudia, oraindik ere modu aski landu gabean, oinarrizko **estimuluen** konbinazio gisa ulertzen zuelarik (forma, intentsitatea eta iraupen moduak izan daitezke estimulu horiek). Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Usaimenak ere, ikusmenak eta entzumenak bezala, bizkor erantzuten dio **estimulu**-aldaketari. Irene Aldasoro

Ezpainak, mihia eta ahosabaia sentimen errezeptorez josita daude, eta horiek bi **estimulu** mota jasotzen dituzte: zaporeekin lotuta daudenak eta kontaktuarekin edo laztanekin lotuta daudenak. Luis Elberdin

Nik inolaz ere ezin nuen sinetsi **estimulu**-erantzuna baizik ez zela. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zutabe bakoitza espazioko noranzko baten arabera dago "orientatuta" (10º-z behin gutxi gorabehera); esan nahi baita noranzko horretako argi-**estimuluak** atzemateko dagoela espezializatua. Josu Zabaleta

Zentzumen **estimuluak** -ikusmen, usaimen, ukimenezkoak...-; horiek substratu fisiologikoa iratzartzen dute. Luis Elberdin

Ikusmen-**estimulu** gehienak aldatuz joaten dira, iraun ahala, edo elkarren segidan gertatzen dira. Josu Zabaleta

Laztanek, batez ere ahozko laztanek, ukimen, usaimen eta dastamen **estimuluak** jasotzen dituzte. Luis Elberdin

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behar besteko estimulua (5); **besteko estimulua** (5); **bi estimulu** (4); **estimulu atsegina** (4); **estimulu horiek** (4); **estimulu sexual** (4); **estimulua hartu** (3); **eta estimulu** (8); **koitoa estimulu** (3); **koitoa estimulu atsegina** (3); **laztanaren estimulua** (3); **oso estimulu** (4)

---

estintore *iz* su itzalgailua.

Baina Arkaitz ez zegoen inoren jarioa jasateko prest: «**Estintorea** hor dago/hortxe buruz buru, ez du erantzuten baina/dena entzungo du». Berria - Kultura

---

estipulazio *iz* dokumentu bateko xedapena.

Eskubide hori ez basailuari ez honen oinordekoei zegokienez, baizik eta aurreikusi eta itxaron ezin zen ustekabeko kasua zenez, ez zen horrelako **estipulaziorik** egin, eta prezio jakin bat ordaintzen segitu zen. Iñaki Iñurrieta

---

estira *iz* norbaitek pairatzen duen oinaze gogorra.

Gogoan atxikita geratuko zitzaizkion gizonari, **estiran** dagoenaren intzirien gisako kexu mingarri haiek. Imanol Zurutuza

Inkisizioneak Iruñan zituèn gartzela sekeretuetan, non baitzeuden, ziegak ez ezik, auzitegiko gela eta torturatzekoa ere, bere **estirarekin** eta bertze mila tresnarekin. Joan Mari Irigoien

Zenbat eta gehiago hazten zitzaion sabela handitzen ari zen haurraren eraginez, orduan eta gehiago estutzen zuen **estira** tresna hura, martirio hura sufrituz Itxaropena zen, oinaze **estiran** gailentzen den itxaropen hori, Inkisizioaren leotzetan ere heriotzara kondenatuei belarrira mintzatzen zaiena. Josu Zabaleta

Ordea, amodioaren **estirak** nekez esplika zitezkeela niolarik, ikastolako arduraduna bi godalet plastiko garagardoz arrada beteak ekarriz hurbildu zitzaidan. Itxaro Borda

---

estirada *iz* futbolean eta kidekoetan, atezainak, baloia harrapatzeko, egiten duen pulunpa modukoa.

Goio ez zen hain efektiboa izango baina ausarta bai, **estirada** itzelak egiten zituen airean luze jauziz patioko lurrean, beste edozeinek belardian edo hondartzan egingo lukeen moduan. Joseba Sarrionandia

---

estiragailu *iz* estira tresna.

Estiragailu [...]: Argudio tresna bat, garai batean fede okerraren jarraitzaileak egia berdaderora erakartzeko maiz erabilia. Xabier Olarra

---

estiratsu *izond* oinazetsua.

Hasperen **estiratsuak** hauteman. Itxaro Borda

---

estiratu[1], estira(tu), estiratzen du *ad* tiratuz luzatu. *irud/hed*

Denborak **estiratzen** du denbora nahi duen izariz, ene kontzientzia aldiz tinko dagoelarik. Piarres Aintziart

---

estiratu[2], estira(tu), estiratzen du *ad* oinazetu.

Martirio txikiak (**estiratzea** eta erpuruak zanpatzea) abolituta zeuden, baina torturarik garratzena, kartzela, bizirik zeukanagu. Anton Garikano

Hatz erro moztuak pasmaturik izango ditu, apo **estiratuaren** moduan dardaratzen den ezkerreko eskuan. Joseba Sarrionandia

---

estireno *iz* bentzeno-hidrocarburo aromatikoa, harrikatzaren osagaia dena.

Estirenoak langileen osasuna «nabarmen» honda dezakeela ohartarazi du CCOOk. Berria - Ekonomia

Minbizia eragin dezake **estirenoak** eta plastikozko tutuak eta igerilekuak ekoizteko erabiltzen da, adibidez. Berria - Ekonomia

Osalanek hainbat azterketa egin ditu **Estirenoaren** eraginei buruz eta ondorioztatu du egunero substantzia horrekin lanean dabiltzanen %57 ohiko parametroetatik gora daudela. Berria - Ekonomia

---

estoatar *iz*

Estoatarrentzat gizon-emakumeak, arrazoimenari jarraitzen dioten eta ez diotenen artean banatzen dira: nahinongo arrazoizkoak alde batean, nahinongo barbaroak bestean. Askoren artean

Eragin **estoatarraren** pean, Erroman kontzeptu berri bat, Mendebaldeko historia intelektualean erabakiorra izango dena asmatu da, Eszipion gaztearen zirkuluan antza, arrazoizkoen komunitatea ezaugarritzeko: humanitas, jende prestuak hasieran errezeloz edo are destainaz begiratua, Zizeronek berehala ospe onez bete eta gero. Askoren artean

---

estofatu *izond ipar* itoa.

Halaz, lankideen irri **estofatuak** aditzen zituela, Jacques, bere kaiola bitratura itzultzen zen, espantero. Itxaro Borda

Janinak zotin **estofatuka** higatzen zen, Jacoben igandeetako paltoen papoetan izar horia arraposki eta ezer ez bailitzan josten zuela. Itxaro Borda

---

estoiko *iz* estoizismoaren aldeko pertsona.

Estoikoek aberastasunak, giza ohoreak, oinazea, nahigabeak, plazerrak, alferreko gauzatzat zeuzkatelarik, gizakien zorionaren alde baizik ez zuten jarduten. Iñaki Iñurrieta

Monoteista platoniko, **estoiko**, kristau eta marxistei susmagarri zaien bezala jendea munduaren anitzaz gozatzen ikustea, sortzaileari ere susmagarri zaio irakurlea liburu eta autore anitzez gozatzen sumatzea. Markos Zapiain

Hau bezalako uneetan **estoikoak** irribarre egingo zuen, baldin eta espezie klasiko hori ez bada erabat iraungi ziniko modernoaren joan-etorriei toki zabala uzteko. Jon Alonso

Senekaren garaian, lau filosofia eskola ziren nagusi Erroman: platonikoena, aristotelikoena eta **estoikoena**, batetik, elkartze prozesu batean abiatuak, eta bestetik epikurozaleen lorategia, lizun eta zerriak zirelakoan beste hirurek baztertua, nahiz arrazoizkoenak izan ia beti. Markos Zapiain

Gaur egungo logika ezagutzeko, beharrezkoa da Aristotelesen eta **estoikoen** ideia logikoak aztertzea. Askoren artean

Azken pentsalari greko eta latindarren mundu ustelduan eta gainbeherakoan zabaldu zen, eta bere une gorena ziniko eta **estoikoen** filosofietan topatzen dugu. Askoren artean

Kontzepzio hau puntu batean bat dator **estoikoenarekin**: bere materialismoan, errealitate oro materiaren forma bat besterik ez baita. Xabier Amuriza

Ez da izan sektarik **estoikoena** baino printzipio gizakiarentzat duinagoak eta pertsona onak hezitzeko egokiagoak izan dituenik. Iñaki Iñurrieta

Erraten da horrengatik ez dela zuzena **estoikoek** ziotena, alegia, arimako pasio guztiak gaitzak direla, zeren eta arrazoiaren araberakoak zinez onak baitira eta haren aurkakoak, berriz, gaitzak, 7. artikuluan adibideei eta lekukotasunei esker argi frogatzen baita bereizi behar direla bozkario ona eta gaitza, tristura ona eta gaitza. Piarres Xarriton

Gaurko fisikaren terminoetan, Lukrezioren denbora denbora itzulgaitza dela eta haren naturak, beraz, historia bat daukala esan beharko litzateke, **estoikoena** itzulgarria eta historia gabea den bitartean. Xabier Amuriza

Zenon, Krisipo, Marko Aurelio enperadorea, eta gainerako **estoiko** gogorrak. Txillardegi

2 (izenondo gisa) estoizismoari edo estoikoei dagokiena; zoritxarrak ez hotz ez bero uzten duena.

Erremediorik ez duten gaitzak egonarriz eraman behar direla esan nahi zuen, noski, filosofo **estoikoak**. Joxerra Garzia

Egia ezin eduki daitekeela Zenon **estoikoaren** definizio batetik ondorioztatzen zuten. Imanol Unzurrunzaga

Erromatarrek ideia aristoteliko eta **estoikoak** jaso zituzten maila teorizatzailean, baina praktikan lege naturala malguagoa zen, etnikoki inperioa konplexua zelako. Askoren artean

Bi mujikek axolagabekeria **estoikoz** begiratzen zioten emakume mozkorraren amorruari. Jose Morales

Andre zahar hark axolagabetasun **estoikoz** erantzuten zien eguneroko bizimoduen nahigabe materialei. Karlos Zabala

Goizean frogatua bainuen ene kotxeroaren zurruntasun **estoikoa**. Koldo Izagirre

---

estoikoki *adlag* estoikoen moduan.

Aldo, medikua baitzen, altxatu, zigarro bat **estoikoki** piztu, eta esan zuen: [...]. Juan Garzia

Ongi hartzen jakin zuen ilearena, eta lankideen txantxak **estoikoki** ez ezik umore onez ere eraman zituen. Karlos Linazasoro

---

estoizismo *iz* zoritxarrari buruzko axolagabetasuna.

Estoizismoa da etika antzinatarreko eskola sonatuena, San Pauloz gero kristautasunean bertan nagusitu baita nolabait, eta kristautasunarekin mendebalean, Ilustrazioan batik bat. Joxe Azurmendi

Une horietan bere lasaitasuna eta **estoizismoa** hondoratzear egoten ziren. Joxemari Iturralde

Horrez gain, londrestarren «**estoizismoa** eta erresistentzia» azpimarratu zituen. Berria - Harian

Erromara joan eta gutxira **estoizismoaren** filosofiarekiko interesa agertu zuen Senecak, eta ikasketak bukatu ondoren, politikari ekin zion; Neron enperadore gaztearen tutore izendatu zuten. Berria - Kultura

Estoizismoz pairatu zituen sendaketak, mingarriak baitziren oso. Juan Garzia

Lehen astinduarekin, maisuak kordea galdu zuen; bestea, Apaizaren ondoko izandakoa, isildu egin zen, eta **estoizismo** gaizto batez hasi zen zartakoak hartzen. Koro Navarro

Morales anaietako zaharrena konturatzen zen urteak joan ahala gizon lasai eta patxadatsua ari zela bilakatzen, bizitzak ematen zizkion ustekabe guztiak **estoizismoz** eta sarritan etsipen osoz hartzen zituela. Joxemari Iturralde

---

estoka 1 *iz* trantzea, estualdia, larrialdia.

Batetik, horra Amerika bera: harek du haundienean Irakia bere **estoka** txarretik libratu. Herria

Estoka larrien artean ibilki dira afera horretan: prefetaren errekurtsoa baino lehenago beste bi galduak ditu haien kontra CGR-ek. Herria

Bizitegi eskasiaren **estoka** salatu dute egundainokotan. Herria

Bertzetik, **estokaren** oraino gehiago tinkatzea, euskal alderdi politiko bat anti-demokratikoki legez kanporatzeraino. Herria

Beharrik, portuko bi gidariek, pilotina tresnarekin marearen indarra erabiliz, **estoketik** atera ahal izan dute, eta presentatu da barraren parean uhainak sei metro gora zabiltzan momentu larrian, eta bere motorra beti geldirik."Oscar Cine" proiektua **estokan** . Herria

2/1 eko garaipenak guti erakusten du Baionesek zenbat atxiki dituzten landestarrak **estokan** kasik partida denbora osoan. Herria

Ondorioz "Dantzazpi" eta "Baionan kantuz" arrunt **estokan** bezala ezarriak dira. Herria

---

estokada *iz* estoke kolpea.

Hori bai **estokada** ederra! Au-auuu! Patxi Iturritegi

---

estoke *iz* zezenketariek zezena hiltzeko erabiltzen duten ezpata.

Bestalde, Demetrio Cantemir, errumaniar handiki kristau ortodoxoa, Ateak Moldaviako printze izendatu K.o. 1710ean eta hurrengo urtean errusiarren aldera desertatu zuena, garai hartako erretratu batean ileordea, jaka, txalekoa eta **estokea** dituela agertzen da. Iñaki Mendiguren

---

estola 1 *iz* apaizek eta kidekoek elizkizunetan lepotik behera janzten duten ehunezko zerrenda.

Jin zen beraz erretorea supeliza zuria eta **estola** brioleta soinean. Michel Oronoz

-Nahi bai, nik -erantzuten zien apaizak- **estolaren** ordez muleta hartu, eta ongi hiltzen laguntzen aritu ordez zezenak hiltzen hastea. Josu Zabaleta

Gandiagaren **estola** lepoaren inguruan airoski bildurik. Jon Alonso

Minak garrasi sarkorra eginarazi zion, eta ezertarako ez zela egon zen uneak profitatu nituen bere arropak kendu eta eskuak **estolarekin** fermuki estekatzeko. Jon Alonso

2 larruzko zerrenda zabala, emakumezkoek besagainetan jartzen dutena.

Hiribildua hartu zutenean eta gizonezko guztiak hil ondoren, bertako matronak esklabotzan eraman zituzten, beren **estola** eta beren matrona-bereizgarriak kentzen utzi gabe eta soinean eramatera behartuz. Santiago Iruretagoiena

Bakarren batek kolomen ordez obran **estolaz** jantzitako emakumeen marmolezko estatuak jarriko balitu, kariatideak deitzen diren horietakoak, eta gainean modiloiak eta erlaitzak ezarriko balitu, jakina, esplikazioak eman beharko dizkio galdetzen duenari. Santiago Iruretagoiena

---

estolda 1 *iz* hirietako ur zikinak eramaten dituen lurpeko erretena edo kanala.

Ur okadak **estolda** orotatik. Unai Iturriaga

Haiengatik daude **estoldak** krokodiloz beterik. Joxan Elosegi

Bafada trinko geldietan zabaltzen zen kirats hura, zirimola uzkurtuetan, **estoldek** jariatzen duten hatsa iduri. Lopez de Arana

Beste hirurak, itxura denez, **estolda** batean ezkutatu dituk, eta horretara irten dituk bizirik. ez dago **estoldarik** eta ur zikina zuzenean ibaira isurtzen da. Txillardegi

Harraskan goizeko ontziak garbituko ditut, erabilerak suntsitutako esponjarekin, eta kolakaoaren marroiak kutsatuko du, **estoldaren** isuriak ibaia bezala. Lander Garro

Estolden ondoan, zaborrontziei sekulako kiratsa zerien. Lopez de Arana

-Bonba ez ziotean sotoan sartu, etxe azpiko **estoldan** baizik. Alberto Ladron Arana

Kartzelaren egitura ez ezik, sotoak (ez osorik) eta **estolden** sarea ere barne hartzen zituen. Rafa Egiguren

Lehorte luze baten osteko euri-zaparrada bortitzak **estoldetan** sorturiko buxadura topatu zuten metroko ahoan. Lutxo Egia

Koordinazio lanak ere ez ziren ongi joan: **estoldetatik** beheranzko eskaileretan arazo larriak izan ziren, erorketak, istripuak, garrasiak, urratuak, arratoien hozkadak ere ez ziren gutxi izan. Karlos Linazasoro

Estoldako ubide erdi lurperatu bat. Juan Kruz Igerabide

Sekulako kiratsa ekarri zuen aireak, une hartantxe Salemgo **estoldetako** estalki guztiak jaso izan balituzte bezala. Anjel Lertxundi

Kafea **estoldako** uraren parekoa da hemen. Harkaitz Cano

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estoldarik zikinenean lan egiteko aukerakoak ziruditen gomazko eskuzorro handi batzuk baitzituen jantzita. Ramon Saizarbitoria

Bere oinazearen zikina isurtzen digu orduan gainera, besterik ez baitira ibaia kutsatuak, mendi zabortuak, hiriaren **estolda** ustel-kirastuak. Pako Aristi

Hautsitako **estolden** kiratsa. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estolda -sistema ere txunditzekoa da. Anton Garikano

Pedrok korrika segitu zuen, **estolda** sareko errekastoan sartuta, erori eta jaiki, tarte zabaleko burdin hesi batez itxita zegoen aho batera iritsi zen arte. Jon Maia

37 dinamita txotx aurkitu zituzten Aix-en-Provenceko auzitegitik hurbil, **estolda** sarrera batean ezkutatuak. Berria - Mundua

Estolda zuloa garbitzen ari ziren langileek aurkitu egin zuten haren beso bat. Harkaitz Cano

Inork ez zuen ikusi **estolda** -zuloan behera desagertzen. Jon Muñoz

Baziren era berean arratoi batzuk, **estolda** -ahoen ondoan jateko zerbaiten bila, sagu hori txiki batzuk, eta katu bat, zelatan. Joxan Elosegi

Arratoi handi batzuk ikusi nituen gaizki itxitako **estolda** -estalki batetik ateratzen. Joxan Elosegi

Zakar, **estolda** eta ustel usaina zerion lekuari. Koro Navarro

3 irud/hed

Gauza bera gertatzen duk askapen nazionala edo iraultza bezalako kontuekin: horietan ere, **estoldak** nagusi. Iban Zaldua

Eta nola herriak bata bestearen ondoren **estolda** berera husten diren, hala kamioi militar horiek ere, bakeak hurrupaturik, bata bestearen ondoren konbertitzen dira bakera. Josu Zabaleta

Estoldak , egun, izugarri luzatu eta korapilatu dituk, justizia-jauregiak eta ministerioak ordezkatzeraino. Iban Zaldua

Itxi ezan hire **estolda** eta ez gaitzan zikindu hire zikinkeriarekin! Patxi Zubizarreta

Baina, diru asko irabaziagatik, **estolda** kirastu horretan xahutzen duzu. Patxi Zubizarreta

Nahaste-borrastea, gainera, neurri handi batean, nahita eragindakoa dela dirudi, Estatuaren **estoldetan** ez dutelako argia maite. Berria - Euskal Herria

Badator eta badoa; tanta batzuk, berriz, betiko geratzen dira oroimenaren **estoldetan** galduak. Berria - Kultura

Azidoa bota du **estoldetara** Gasteizko enpresa batek. Berria - Euskal Herria

Istiluren bat zegoen bakoitzean batez ere, euskaldun guztiak moralaren eta etikaren **estoldetara** kondenatzen gintuztela. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estolda batean (3); estolda estalki (4); estolda eta (3)

---

estolderia *iz* estolda sistema.

Hiru hirietako **estolderiak** egokitu eta luzatzeaz gain, lau iraztegi egin behar izan dituzte. Berria - Euskal Herria

Auto ilara luzeak eragin zituen hiriburuko erdialdeko kalerik garrantzitsuenen barrena, **estolderiak** ezin baitzuen irentsi zetorkion ur kopurua. Berria - Euskal Herria

Estolderiak ere zahartuta daude eta euri zaparradak egiten dituenean hodiek ikastola barnera isurtzen dute sobera duten ura. Berria - Euskal Herria

Bi hegazkinek New Yorkeko Dorre Bikiak txikitzen zituzten egunean hamalau urteko neskato bat Bukaresteko kaleen azpira sartzen zen, egunero bezala, hilabete gutxiko alabarekin, **estolderian** aterpetzeko. egunero, iluntzearekin batera, 2.000-3.000 lagun abiatzen ziren (dira) hiriburuko **estolderiara**, etxera, egunean eske edo lapurretan ibili eta gero. Ondoan, batek **estolderia** sareko tapa bat zabaldu zuen eta barrura sartu zen. Berria - Mundua

Ur eta **estolderia** faltak bonbek eta balek baino hildako gehiago eragiten dituzte gatazkotan. Berria - Gaiak

---

estomago *(orobat **estomagu** g.er. eta **estamu** g.er.) iz* urdaila. ik **estomaka**.

Estomagoa lasaitu egiten zait. Berria - Harian

Hortzekin iragazi egin behar izaten zen, zapaburuak irentsiz gero hazi egiten baitziren **estomaguan**, eta ospitalera operatzera joan beharra zegoen. Pablo Sastre

Hurrengo egunean hartu nuen, **estomagoa** triste nuenean. Berria - Harian

Azken boladan makal samar zebilen **estomagotik**. Berria - Kultura

Bero eder bat sentitzen duk barruan, **estomagoan** enchilada bat janda sentitzen dena bezalakoa. Pablo Sastre

Axalekoaren atzean dagoen sakontasuna agerrarazten, **estomagoaren** ordez zulo bat dutela (metaforikoki, jakina) bizi diren pertsonaien izatea azaltzen bikain asmatu baitu Cillerok ipuinotan. Berria - Kultura

---

estomagu ik **estomago**.

---

estomaka *(orobat **estomago** g.er. eta **estomako** g.er.) iz* urdaila.

Sabela nahas nabari zuen eta **estomaka** trebes. Itxaro Borda

Estomaka hutsik neukan, baina ez nuen batere goserik sentitzen. Fernando Rey

Estomaka sentitzen du bular parean, nola estutzen dion eztarria. Alberto Barandiaren

Jira-bira haiekin **estomaka** eta hertzeak ere are gehiago nahastu eta, handik gutirat, karelerat hurbildu, eta goitika egin nuen. Joan Mari Irigoien

Bere hertzeek eta **estomakako** zainek beren lana ez dezakete egin. Herria

Malenkonia gur-gur hasten zait hor behean, gero gora egiten du sabelera, hesteen buelta egiten du, gero **estomakan** plantatu eta korapilo bat jartzen zait zintzurrean. Fernando Rey

Bere jatekotik eskaini zidan, baina ene **estomakak** ez zuen gizenik jasaiten ahal. Marzel Etxehandi

Ene **estomakak** ez ditu onartzen han eta hemen emaiten zaizkionak. Marzel Etxehandi

Artamendatzen zitzaigun guti jatea, **estomaka** berriz bere hartaratu arte. Marzel Etxehandi

Estomakatik eztarrira gora eta behera doazen zintzurreko korapilo horiekin gertatzen den bezala, halaxe gertatzen da zenbait unetan esan gogo diren egiekin. Fernando Rey

Estomakan zerbait arrangura jinik eritegirat altxatua izan da eta itxuraz gaitzaren itzulia ez zen hain bortitza iduri bainan betan bihotzak amor eman dio eta pausatu da 84 urtetan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ene estomakak ez

---

estomako ik **estomaka**.

---

estomatologia *iz* medikuntzaren alorra, ahoko eraitasunez eta ahoaren anatomia eta fisiologiaz diharduena.

Quiron Klinikako **Estomatologia** eta Odontologiako Zerbitzuburua. Berria - Harian

Santiago Pardo Quiron klinikako **Estomatologia** zerbitzuko zuzendaria da. Berria - Euskal Herria

Estomatologia Sailak titulu faltsuak banatzen zituela ere zabaldu zen. Berria - Euskal Herria

Auzitara eraman zituen Javier Goiriena eta Montserrat Barranquero, **Estomatologia** Saileko katedradunak. Berria - Euskal Herria

---

estomatologo *iz* estomatologian espezialista den medikua.

Urdaileko mina nuela eta **estomatologo** batengana nindoala esan nion. Joseba Urteaga

Kategorikoki erantzun zidan: **estomatologoak** ez dira urdailaz arduratzen, ahoko infekzioez baizik. Joseba Urteaga

---

estonagarri 1 *izond* harrigarria.

"Geografo anarkista" izan zitekeen, beraz, beretzako moduko titulua, zeina "bankero anarkista" eta gainerako uztartze **estonagarrien** baldernari eskubide osoz eransten ahal baitzaio. Iñaki Segurola

Istant batean, trafikoa izugarri ugaritu zen, biderkatu, eta gidariek, harriduraz beterik, elkarri begiratzen zieten, isilik baina, ausartu gabe esatera autoen matxinada ttipi hura bitxia zela oso, **estonagarria**, auto asko eta asko berdin-berdin ibiltzen zelarik erregaia aspalditxoan agortu arren. Karlos Linazasoro

Estonagarria zait jende batzuek -dendari, botikes, saltzaile, zerbitzari- ezezagunekin kontu-kontari hasteko duten abilezia. Aingeru Epaltza

Halakorik gertatzen zitzaion lehen aldia zen arren, ez zuen aldaketak ustekabean harrapatu, aspalditik baitzetozkion hasiera batean **estonagarri** zitzaizkion zeinu haiek. Harkaitz Cano

Irainaren berpizkunderik ez egotera, egunkariko norbaiti **estonagarria** egingo zitzaion gure hizkuntzaren eta mulo hitzaren lotura Mitxelena baten testuan. Bernardo Atxaga

Gurasoekin batera joan zen bera ere aurrenekoz alde guztietatik gatz zuriz inguraturik jotzen zuten gizon-emakumeen emanaldia ikusi eta entzutera, eta hain izan zitzaion

gustagarri bezain **estonagarria** non, geldi eta zurrun, harri eta haragi, gatz eta hezur eman baitzuen orkestrak Mozart jotzeko behar izan zuen denboraldia. Felipe Juaristi

Ez da dudarik, euskarazko gure kantuek badute arrakasta bat **estonagarria**! Herria

Ez al da hunkigarria? Ez al da erabat zirraragarri eta **estonagarria**? Itaaaalia! Boccaccio! Hik bai jakin!. Berria - Kultura

Estonagarriena, kofesatu nahiz dabiltzanen saldoa! Herria

2 (adizlagunekin)

Txosten egileentzat, «euskal laborantzaren egoera aski **estonagarria**» da. Berria - Ekonomia

Panorama hagitz **estonagarria** jartzen zaigu: alde batean gaixoa sendatzea dioen hitzak, beste batean zikiratzea dio edo esan nahi du. Iñaki Segurola

---

estonamendu *iz* harridura.

-Zer diozu, haurra? -baina berehala gainditu zuen **estonamendua** balnearioko andereak-. Koldo Izagirre

---

estonatu, estona(tu), estonatzen **1** da/du *ad* harritu.

Emaztea, akaberan, senarra eszena hartan ikustean, larritu, **estonatu**, eta gelatik alde egin beharrean gertatu da. Patxi Zubizarreta

Heietarik zenbait **estonatu** dira mahastietako patarrak ikusiz. Herria

Zenbait herritarrek ez zuten ezagutzen leku hori eta **estonatuak** izan dira ikusiz zer leku pollitean den kartiereko plaza hori. Herria

Protagonista **estonatzen** da neska batzuen ideia modernoez eta amaren ikusmolde zaharrak harritu gabe ematen dizkigu, baina ez da liburuan euskalduntasunaz edo baloreez inongo diskurtso hanpaturik. Janbattitt Dirassar

Fededun amultsuak, fededun gixakoak beti **estonatu** nau. Piarres Aintziart

Estonaturik so egin nion eta buruzagiak behako beltz bat bota zidan. Piarres Aintziart

"Baina, nor etorriko da hona?", galdetu dio kapitainak **estonaturik**. Pablo Sastre

Biharamun goizean ohean iratzartu ginen, gostuan, **estonaturik**; zerbait gertatu zela eta hau: Geryville hirira arma bila johan zen deskatamendua atakatua izan zela. Piarres Aintziart

Tira ba, konta ditzagun, esan nuen, edo ez, ez nuen hori esan, ezen, esaldi hori baino lehenago, hauxe bota bainuen, **estonaturik**: nola beste zer hoberik ezean? Karlos Linazasoro

Maria Sara doktoreak aurrez aurre begiratu zion, zeharo **estonaturik**, ez zen **estonatuago** egongo gizonak lore hau lorontzi huts batean agertarazi izan balu. Jon Alonso

Zeunerrek ezpainak horzkatu zituen, barrenetik gora zetorkion oihua bertan hiltzeko, hain baitzegoen **estonaturik**. Felipe Juaristi

Joan dira **estonatzeko** garaiak. Berria - Kultura

2 (era buruta izenondo gisa)

Hobe zen ikusle edo entzule jartzea, beti zegoen algara jator bat botatzeko parada aurkari **estonatuaren** lepotik. Koldo Izagirre

Oixtian aipatu ditudan jende **estonatuek** naute nihaur akuilatu eta itzuli mitzuli filosofoetan erdi galdurik utzi! Piarres Aintziart

Neska ezezagun batekin oheratu ostean giltzurruna kendu zaion buztangorri **estonatuak** bezala. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta estonatuak** (3)

---

estonatze *iz* harritzea.

Beldurra ematen zidaten gazte haiek, beldurra ez, baizik **estonatze** nardagarri bat. Piarres Aintziart

---

estoniar **1** *izond/izlag* Estoniakoa, Estoniari dagokiona.

Zaldun teutonikoek Siria utzi eta beren zoriona Vistulan bilatu zuten prusiar, letoniar eta **estoniar** paganoen bizkar. Iñaki Mendiguren

Begira herrikanta **estoniar** honi: [...]. Patziku Perurena

2 *iz* Estoniako herritarra.

Jatorriz **estoniarra** zen, Vezenberg herrikoa, eta, etxaldez etxalde, zenbait urteren buruan hiribururaino bertaraino heldu zen. Jose Morales

Oso txarto hitz egiten zuen errusieraz, eta nola nagusia errusiarra zen -Lazarev abizenekoa- eta inguru haietan beste **estoniarrik** ez zegoen, Jansonek ia bi urte egin zituen isilik. Jose Morales

Estoniarrek sinesten omen dute oraindik Finlandiarren atarramentu zaharrean; hain zuzen ere, ipar edo iparrekialdetik jotzen duen haize latza,sukarra eta erreuma-handitsuak berekin ekarri ohi dituena,hango sorgileek azpijokoz bidalia dela uste baitizute. Patziku Perurena

Eta finlandiarrak, **estoniarrak**, laponiarrak, txeremiarrak, txuvashiarrak eta permiakak gehitzen baditugu, eta alemaniarrak, grekoak, tatariarrak, Kaukasoko leinuak, mongoliarrak, kalmukak, samoiedoak, kamtxatkarrak eta aleutiarrak gaineratzen, ongi ulertuko dugu horren estatu zabalean batasunari eustea zaila baino zailagoa dela. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estoniarra da** (4); **markko martin estoniarra** (3); **markko martin estoniarrak** (4)

---

estoniera *iz* Estonian mintzatzen den hizkuntza fino-ugrioa.

Behin, **estonieraz** idatzitako gutun bat jaso zuen, baina, bera analfabetoa zenez eta besteek **estoniera** ez zekitenez, irakurri gabe geratu zen gutuna. Jose Morales

Jansonek, bridak lasaiturik, edozein unetan leratik erortzeko zorian, zer edo zer kantatu edo oihukatu ohi zuen **estonierazko** esaldi eten, ulertezinekin. Jose Morales

Estonian **estoniera** hiztunak eta errusiera hiztunak daude. Edorta Jimenez

Ez da mintzaira indoeuroparra (hungarieraren jatorria, hala ere, ezaguna da: uralikoa da, finlandiera eta **estonieraren** familiakoa) Urtzi Urrutikoetxea

---

estorbu *iz* oztopoa, eragozgarria.

Aitaren aurka ibili zen denbora batean, hura boteretik nola botako, anaia bat akabatu zuen -agintea eskuratzeko **estorbu** egiten ziolako, itxuraz-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kafea ez edan amaieraraino, kafe-hondarrak mihian eta eztarrian **estorbuan** eta traban sentitu nahi ez badira behintzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

estore **1** *iz* behetik gora biltzen den errezel modukoa.

Atea itxi eta **estoreak** jaitsi zituen, nahikoa entzun zuten kanpoan. Harkaitz Cano

Estorea jaitsiko diat, argi gehiegi zagok-eta. Errezela eta **estoreak** itxi zituen Martak. Anjel Lertxundi

Argiaren dirdai urrekarak, **estoreen** arteko zirrituetatik sarturik, su-txinpart txikiak sortarazten zizkion haren ile-adatsen isla gaztaingorriari. Anjel Lertxundi

Ez da eguzki errainurik sartzen **estoreen** zirrikituetatik, zu ez zauden sofa granatean. Eider Rodriguez

Zerua ari da saretzen **estoreen** bestaldean, baina oraindik ez dago nahikoa argi begirada batetik bestera dauden trapezio kordelak ikusteko. Harkaitz Cano

Bebarrua iluna da, eta **estoreetan** zehar sartzen diren argi-izpi bakunek agerian uzten dute hautsaren dantza joria. Iban Zaldua

2 (izenondoekin)

Estore astunek motelduriko argi hits-herabea ohe gainean nagi zetzan, Adaren gorputz lokartuak tapakiari sortzen zizkion formetan argi-itzalka jolasten. Anjel Lertxundi

Kortxoaren eskuinaldean berriz, gelako leiho bakarra, **estore** gris batzuez babestua eta erdialderaino itxia zegoena. Harkaitz Cano

Estore hautsi baten dardara zarata. Harkaitz Cano

---

estorma ** eustorma? *iz*

Estorma ere kontuan hartu beharra daukazue; euria eginez gero, arropa eta motxila bustiek oso pisu handia hartzen dute eta aldapa askoz gogorragoa bihur daiteke. Patxi Zubizarreta

---

estornino *iz* araba-zozoa.

Hirian bazegoen arazo bat **estorninoekin**, eta zita egina zeukan udaleko parkeen arduradunarekin. Jon Alonso

Arazoa zen **estorninoak** saldo handietan zebiltzala parkeetan, izurrite bihurtuta, eta bazter guztiak zirinez zikintzen zituztela. Jon Alonso

---

estortsio **1** *iz* norbaitengandik dirua edo onuraren bat lortzea mehatxuen bidez.

ETAk «indarkeria, xantaia eta **estortsioa** erabiltzen jarraitzeko borondatea» agertu duelako atentatuen bidez. Berria - Euskal Herria

Epaileak «gizarte ondasunen erabilera okerra, gaizkileen elkartea, terrorismoa finantzatzea eta **estortsioa**» leporatzen dio Charles Pieriri. enpresaburuek uste dute **estortsioa** amaitzea ere su-etenaren barruan sartzen dela. Berria - Mundua

Indarkeria behin betiko desagertzen denean, hots, hilketarik, mehatxurik eta **estortsiorik** ez dagoenean, orduan, Kongresuko ebazpenak dioen moduan, eta Ajuria Eneko 10. puntuak zioen moduan, elkarrizketa mahaia martxan jartzeko unea izango da. Berria - Harian

Espainian behin betiko amaitu ditzagun **estortsioa**, indarkeria eta terrorismoa. Berria - Harian

Asturiasko printzeak gaitzetsi egin zituen «enpresaburuei eta herritar guztien eskubide eta askatasunei eragiten dieten terroristen ekintza onartezin, mehatxu eta **estortsioak**». Berria - Ekonomia

Joan den otsailean Bilboko portuko garraiolariek egindako grebaren ondorioz egindako txostenak **«estortsio»** delituaren zantzuak ikusten ditu, eta errudunak seinalatu: «Tarifei buruzko gehiegikeriaz egindako akordio horiek izenpetu dituzten Sintrabiko kideak». Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horrela, adibidez, 'zerga iraultzailea' **'estortsio** ekonomikoa' deituko da. Iñigo Aranbarri

Alderdi politikoetako buruzagiei, berriz, **«estortsio** mafioso horien aurrean isilik gera ez daitezen» galdegin die. Berria - Euskal Herria

Uste zuen aduana zergak kobratzea maskaratutako **estortsioa** baino ez zela, hau da, Estatuak gutako bakoitzaren poltsikoan sartzen zuela eskua, ordainetan onurazko ezer eman gabe. Bego Montorio

Azken batean, zure gutunak jasotzea bera halako **estortsio** bat zen niretzat. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Barregarria da ETAk su-etena ezartzea euskal enpresaburuei **estortsio** gutunak bidali eta bi astera. Berria - Harian

Polizia ikerketa horien arabera, gainera, Nafarroako zenbait enpresaburuk jasotako **estortsio** eskutitzak su-etena iragarri aurretikoak dira. Berria - Euskal Herria

PSOEk ezker abertzalearen aurka **«estortsio** eta lapurreta politika» daramala iritzita, bide horretatik ezin duela segi ohartarazi zion. Berria - Euskal Herria

EB-Berdeetako koordinatzaile Javier Madrazok esan zuen ETAren **«estortsio** eta mehatxu kanpaina» bateraezina dela prozesuarekin. Berria - Euskal Herria

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ordurako diru **estortsioa** abian zegoen Sizilian. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estortsio eta (6); **estortsio gutunak** (3); **estortsioa eta** (4); **estortsioa eta mehatxua** (3); **eta estortsio** (3); **eta estortsioa** (10); **etaren estortsio** (3)

---

estortsionatu, estortsiona, estortsionatzen **1** du *ad* norbaitengandik dirua edo onuraren bat lortu mehatxuen bidez.

Gonzalezek zehaztu zuenez, Sintrabik «ez du inor mehatxatu edo **estortsionatu** behar izan», eta gezurra da «inoiz indarkeria baliatu» izan dutela. Berria - Ekonomia

Enpresa handiak **estortsionatzetik** oso enpresa arruntak **estortsionatzera** pasatu da ETA, tailerrak eta abar. Berria - Euskal Herria

Leku santuetarako bidaiarekin jarraitzeko ideiaren aldekoek esaten zuten Espainiako edo Afrikako itsasoan aurkituko zituzten naoei dirua eta salgaiak **estortsionatuz** probetxu eta irabazi handiagoak egingo zituztela, anakronismo honetaz. Jon Alonso

Duintasun hori ez dago **estortsionatzerik**. Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izen gisa)

Gaur-gaurkoz ere, indarraren erabileraren ondoriorik latzenak jasaten dituzten milaka mehatxatu eta **estortsionatuei**. Berria - Euskal Herria

---

estra *(ETCn **6.911** agerraldi; orobat **extra** ETCn **411** agerraldi) iz* teatro lan, peliluka edo bestelako ikuskizunetan, eszenan agertu baina hitz egiten ez duen pertsona.

Nire herriko Antzoki Txikiaz hitz egin nion, eta Balter jaunak proba bat egiteko ekarrarazi ninduela eta hortik ez zela deus atera, eta horregatik erabaki nuela **estra** moduan lan egitea. Fernando Rey

Estra bat izaten segituko dut nire aukera ailegatzen den arte. Fernando Rey

Paperik garrantzitsuenak zein aktorek egingo dituzten erabakita dago jada, eta hemen aukeratzen dugun jendea **estra** izateko hautatzen dugu. Berria - Kultura

- **Estra** bat besterik ez naiz -esan nuen nik-, ezin dut lortu agenterik. Fernando Rey

Gauza berria da bederen **estra** batek publizitateari muzin egitea. Fernando Rey

Mona neska gazte bat da, auzigelan istilua sortu zuena Dorothy Troterri, hau ere zineko **estra**, hiru urteko kartzela-zigorra jarri ziotenean bere burua errudun deklaratu ondoren lapurreta larria egin izanaz. Fernando Rey

'Aida' lanean parte hartuko duten ehun **estra** hautatzeko proba egingo dute BECen. Berria - Kultura

Estren egoera hobetu nahi dute. Fernando Rey

Hollywoodeko hogei mila **estren** sinboloa zarete. Fernando Rey

Etzazula ahantzi **estren** gainean idatzi behar duzun nobela. Fernando Rey

Hemengo inork ez zaitu ezagutzen; ez dakite **estra** soila zarela. Fernando Rey

Neska-mutil arruntak izateak, **estra** arruntak izateak errealago eginen luke. Fernando Rey

A, ez dut esan nahi **estra**-lana ogibide bezala. Fernando Rey

2 *izond/iz* ohikoari gaineratzen zaiona.

Nik behin esan nuen euskaldun izatea lan **estra** bat zela; bazirudien gainerako lanak zeudela eta gero euskaldun izatea ere bai. Berria - Harian

Gabonetako ordainsari **estrarik** ez diete pagatu, ezta aparteko ordurik ere, maiatzetik. Berria - Ekonomia

Sasoia amaitu bitartean zuzendaritzak ez duela inolako irabazi **estrarik** aurreikusten. Berria - Kirola

Onartuko zutela berriz ere lehengo baldintza berdinekin, antzinatasuna eta paga **estrak** ahaztu gabe **Estra**, **estra**, **estra**. J.M. Olaizola "Txiliku"

« **Estra**, zer izaten da?» «Batzuek nahi izaten dute defuntua pixka bat apaindu...». Pablo Sastre

3 ***ordu estra*** ohiko lan orduei gehitzen zaien lan ordu ordainduak.

Ordu estrak maite ditu esklabo berriak, auto handiak, eta bigarren etxea edukitzea. Pako Aristi

Zientziazale amorratuak dira gehienak, eta horrelakoei beti izan zaie errazago **ordu estrak** egitea. Fernando Morillo

Denak **ordu estrak** sartzen gelditzen dira, ni naiz zortzi ordukoa bertzerik egiten ez duena. Koldo Izagirre

Fabrikan **ordu estra** piloa sartu behar izaten nuen soldata eskasa pittin bat osatzeko. Iban Zaldua

Sindikatuek lanorduak gutxitzeko eskatu diote Adegiri, urtean 16 ordu gutxiago lan egitea, eta, ahal denean, **ordu estrak** kentzea. Berria - Ekonomia

Korear nagusiek Ekialdeko pentsaera zeukaten lanari buruz eta, nahiz eta Andu gaixoak **ordu estra** mordoa egin, kalera bota zuten, lan gutxiegi egiten zuelakoan. Jon Arretxe

Ez da ika-mika gehiago izanen **ordu estrei** buruz eta ez dugu lan eginen gau guztian inongo akordiorik gabe. Fernando Rey

· Ederto batean biziko ginateke orain, sartu dituzun **lanordu estra** guztiak behar bezala ordaindu izan balizkizute. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estra bat (8); **estra batek** (3); **lan estra** (3); **ordu estra** (4); **ordu estrak** (11)

---

estrabagante *izond* bitxia, nabarmena edo itxuragabea dena.

Ez dakit bizitza antzerki baten moduan bizi duten, ala bien arteko mugak hautsi dituzten izaki **estrabaganteak** diren. Pako Aristi

Ez zen belarra eta sastraka eta zuhaixka beste barik, harri **estrabagante** batzuk ere bazeuden, han-hemen. Unai Elorriaga

Ez zekien zergatik gogoratzen zuen hori, non eta museo **estrabagante** baten aurrean. Unai Elorriaga

Literatura "deserosoa" eta **"estrabagantea"** ere deitu izan zaie horrelako jolas eta joko alferretan denbora "xahutzen" ibili direnen emaitzei. Xabier Olarra

Iruditu zitzaion haizea, hain primarioa ez balitz, gomaespumaz eginda egongo litzatekeela edo antzeko beste material **estrabagante** batez. Unai Elorriaga

Franco diktadorearekin izandako harremana, Dalik berak bere artelanen gaineko eragindako zalantza, estatubatuar aberatsei emandako koipea, Espainiako gerra ondoren eta beranduago **estrabagantea** izateak, pinturaren banalizazioak... ez zuten indartu Daliren estimua. Berria - Kultura

---

estrabagantzia *iz* bitxikeria, nabarmenkeria, itxuragabekeria.

Euskarari buruzko Larramendi, Astarloa eta abarren **estrabagantzien** kritika. Joxe Azurmendi

---

estrabaloka *adlag* **

Goio larri sentitu zen egia hitza entzutean eta Cassius Clay ozta ozta zutitu zen, zangoak **estrabaloka**, begiratua galduta. Joseba Sarrionandia

---

estrabe *iz* zurezko xafla malgua.

Atsegin fisiko bitxi bat sentitzen dut nire **estrabeak** etengabe bitan banatzen duen izotz lurmentze hori ikusiz. Josu Zabaleta

---

estrabertitu *izond* bere iritzi eta sentimenak erraz adierazteko joera duena.

Dekoratu itogarri bat, aktore-zuzendaritza oso **estrabertitu** bat, eta irudia etengabe argitasun eta iluntasunezko sare edo hesi batean, pertsonaiak barruan hartzen eta jaten dituen sare batean bezala, banatuz. Josu Zabaleta

---

estrabiko *izond* estrabismoarena, estrabismoari dagokiona.

Halako batean, ertzainaren begi **estrabikoek** aurkitu dute nire aurpegia. Anjel Lertxundi

Errezelo haiek guztiak Julian Deereren begi **estrabikoetan** loratzen ziren, udako goiztxinta ederretan ihintza loratzen den bezain galant eta ostenezin. Karlos Linazasoro

Ez zidan haren begirada **estrabikoak** atzeraka eragin. Anjel Lertxundi

Gogoa lauso, nire pentsamendu bertsua zerabilen hark ere buruan: Dylanekin joan zen neska **estrabikoa**. Harkaitz Cano

Begi batez zuzenean begiratzen zidan, bizi; besteaz ez zuen inora begiratzen; bestea **estrabikoa** zen, edo hilik zegoen. Jon Alonso

Ez naiz izutzen: ertzaina **estrabikoa** da, Perti kimikako irakaslea bezala. Anjel Lertxundi

Begi apur bat **estrabikoa** zuen neska beltzaranak. Harkaitz Cano

---

estrabismo *iz* ikusmenaren akatsa, bi begiek aldi berean puntu berera begiratzeko ezintasunean datzana.

Hor dago oraindik, eskuak gerrietan, niri begira, bere **estrabismoaren** puntu gorenetik. Anjel Lertxundi

---

estradiol *iz* ugaztun emeek sortzen duten esteroide estrogeno nagusia.

Klenbuterola, flumetaxona, trenbolona, **estradiola** eta estanozola atzeman omen dizkiete, besteak beste. Berria - Euskal Herria

Kaltzio anpuluak eta **estradiol** injekzioak hartzeko agindu zidan. Joseba Urteaga

---

estradipen *iz ipar* estraditzea.

Paueko dei gortea arrapostuen beha egonen da, anartean ez du deusik trenkatuko beste bi iheslariren **estradipen** ari buruz. Herria

Ostiral goiz honetan Paueko auzitegian izanen da Araitz Zubimendi eta Ibon Arbulu, Batasuneko hautetsi ohien eta Unai Berostegieta Segi mugimendukoaren **estradipen** auzia. Herria

---

estraditatu, estradita(tu), estraditatzen du *ad* gobernu batek entregatu beste gobernu bati honek eskatzen dion pertsona atxilotu edo errefuxiatua.

Agirre Lete **estraditatu** eta preso sartu dute. Berria - Euskal Herria

Garcia Aranburu legez kanpo **estraditatu** dutela eta larri dagoela diote. Berria - Mundua

Zigorra osorik bete ondoren **estraditatu** dute. Berria - Mundua

Atxurra 1996ko uztailaren 23an atxilotu zuten eta 2002an aldi baterako **estraditatu** zutenean, hainbat ekintzetan parte hartu izana leporatu zioten. Berria - Euskal Herria

Battisti **estraditatuko** balute, beraz, bizi osoko zigorra bete beharko luke. Berria - Mundua

1985a amaitzerako 30etik gora ziren Frantziak deportatutako iheslariak, konfinatuak, berriz, 50etik goiti, **estraditatuak** edo herrialde jakin batzuetan bizitzeko debekua zutenak 70 inguru. Jokin Urain

Iruzurragatik **estraditatzen** dute jendea. Lopez de Arana

Gilbert Deya artzapezpiku ebanjelikoa **estraditatzeko** eskatu dio Kenyak Erresuma Batuari, haur trafikoagatik. Berria - Gaiak

Babes-eskakizunak arazo larria zekarkien Prusiako agintariei, gaizkileak eta iheslari politikoak **estraditatzeko** legea sinatu berria baitzuten Errusiarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Abu Hamza buruzagi erlijiosoa Estatu Batuetara **estraditatzeko** prozesua abiatu zuten atzo. Berria - Mundua

Txileko diktadore ohi Augusto Pinochet **estraditatzeko** eta Argentinako militar ohi Adolfo Scilingo auzipetzeko ekimenak abiatu ditu. Berria - Harian

Simon Trinidad eta AUC talde paramilitarreko bi buruzagi, Salvatore Mancuso eta Carlos Castaño AEBetara **estraditatzeko** baimena onartu zuen herenegun Kolonbiako Auzitegi Gorenak. Berria - Mundua

70ko urteetako militantea ihesean dago, Erromak Frantziatik **estraditatzea** lortu duelako. Berria - Mundua

Garcia eta Berasategi **estraditatzea** onartu du Frantziak. Berria - Euskal Herria

Parisko Dei Auzitegiak argi berdea eman dio Iñaki Esparza **estraditatzeari**. Berria - Euskal Herria

Epaileek onartu egin dute Espainiako Gobernuak Makazaga **estraditatzeko** egindako eskaera. Berria - Euskal Herria

Vojislav Kostunicaren aholkulari batek zurrumurru horiek indartu ditu, Mladic **estraditatzeko** pausoak ematen ari direla esanez. Berria - Mundua

Hegoafrikako Auzitegi Gorenak bertan behera utzi du Zimbawen preso dauden 70 mertzenario hegoafrikar Ekuatore Gineara ez **estraditatzeko** helegitea. Berria - Mundua

IBOk salatu egin du Mexikon espetxeratutako euskal presoak **estraditatzeko** erabakia. Berria - Euskal Herria

Egungo presidentea Escobar bezalako narkotrafikatzaileak AEBetara **estraditatzeko** itunaren aurka azaldu zela. Berria - Mundua

AEBetara ez **estraditatzeko** beste ahalegin bat egin nahi du Fischerrek, eta ezkondu egingo dela iragarri du. Berria - Kirola

Uko egin diote Turkiak eskatutako kurdu bat **estraditatzeari**. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aebetara estraditatu (7); **aldi baterako estraditatu** (6); **baterako estraditatu** (7); **baterako estraditatu zuten** (3); **espainiara estraditatu** (5); **espainiara estraditatuko** (4); **espainiara estraditatzea** (3); **espainiara estraditatzeko** (9); **estraditatu dituzte** (3); **estraditatu dute** (8); **estraditatu zuen** (9); **estraditatu zuten** (11); **estraditatuko dituzten** (3); **estraditatuko dute** (4); **estraditatuz gero** (3); **estraditatzea erabak i** (3); **estraditatzea onartu** (3); **estraditatzeko agindua** (3); **estraditatzeko baimena** (4); **estraditatzeko baimena eman** (3); **estraditatzeko erabakia** (5); **estraditatzeko eskaera** (7); **estraditatzeko eskatu** (4); **estraditatzeko eskatu dio** (3); **eta estraditatzeko** (3); **ez estraditatzeko** (8); **gaur estraditatuko** (3); **gaur estraditatuko dute** (3); **presoa estraditatu** (4)

---

estraditatze *iz* gobernu batek entregatzea beste gobernu bati honek eskatzen dion pertsona atxilotu edo errefuxiatua.

Ekintzaile ohi gehiago **estraditatze** zerrendan. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estraditatzearen alde (3)

---

estraditazio *iz* estraditatzea.

Mertzenarioen **estraditazioa** gauzatzen bada, mertzenarioek heriotza zigorra jaso dezakete. Berria - Mundua

Italiak ere eskatu du Battistiren **estraditazioa** baina Chiracek gogoratu du Parisko Helegite Auzitegiak asteazkenean baimendu zuela estradizioa. Berria - Mundua

Frantziako presidente Jacques Chiracek atzo esan zuen gobernuaren «eginbeharra eta ardura» dela Cesare Battisti ekintzaile ohiaren **estraditazio** eskaerari erantzutea. Berria - Mundua

---

estraditu, estradi(tu), estraditzen **1** du *ad ipar* estraditatu.

Mexikok sei presoak **estraditzeko** «interes handia» duela salatu du Arronategik: «Adibidez, Garzonen estradizio eskaeran zeuden hainbat hutsune Mexikoko Kanpo harremanetarako idazkariak zuzendu egin ditu». Berria - Euskal Herria

Pakito eta Fiti arrastatuak izan ziren Frantzian 92-an eta Espainiara **estradituak** duela bi urte. Herria

Espainiak galdetua du **estradituak** izan diten. Herria

Frantzian arrastatuak izanen diren hegoaldetarrak epe motzerako **estradituak** izan daitezke, bi aldetarik eta bero beroan galdekatuak izateko gisan. Herria

---

estraditze *iz ipar* estraditatzea.

Askatasuna elkarteak salatzen du Madrilerat segitze hori, **estraditze** bat dela bainan arrunt legez kanpokoa. Herria

Aldi huntan, prokuradorea bera ere **estraditze** horien kontra agertu da. Herria

Horrentzat ere, Espainiak **estraditzea** eskatzen du eta auzia Agen hirian eginen da, helduden asteazkenean, irailak 25. Herria

Estraditzerik batere gabe auziperatua den norbait. Bi euskaldun gazte horien abokatek Kanadako auzitegi gorenera jo dute, **estraditze** erabaki hori ez dadin bete.2001ean Espainiak **estraditze** galdea eginik, Kanadako Justizia ministroak eskaera hori onartu zuen 2003ko irailan eta dei-gorteak gaur baieztatu du erabaki hori. Herria

---

estradivarius *iz* Estradivarius markako biolina.

Agertu da duela hilabete galdutako **estradivariusa**. Berria - Kultura

estradizio *iz* estraditatzea.

Indiako Gobernuak Andersonen **estradizioa** eskatu zuen. Berria - Gaiak

Fujimoriren **estradizioa** eskatu du ofizialki Limak. Berria - Mundua

AEBetan zen xah-aren **estradizioa** exijitu zuten, Iranen epaitzeko. Berria - Mundua

Bobby Fischer ezkondu egingo da, **estradizioa** ekiditeko asmoarekin. Berria - Kirola

Battistiren **estradizioa** onartu dute Parisko epaileek. Berria - Mundua

Chiracek gogoratu du Parisko Helegite Auzitegiak asteazkenean baimendu zuela **estradizioa**. Berria - Mundua

Lopezen eta Ugarteren **estradizioa** berretsi du Belgikako Justiziak. Berria - Euskal Herria

Estradizioaren alde agertuko da Chirac, Epaitegi Gorenak Italiaren eskaeraren alde eginez gero. Berria - Mundua

Argentinako Justiziak **estradizioa** ukatu eta berehala aske irtengo da 2002tik Argentinan preso zegoen elgoibartarra. Berria - Euskal Herria

Fresneseko espetxera eraman zuten, **estradizioa** gauzatu arte. Berria - Euskal Herria

Bi aldietan, 1.220tik gora sinadura aurkeztu zituzten sei euskal herritar **estradizioa** salatuz. Berria - Euskal Herria

Legea aplikatuz gero **«estradizioa** ukatzeko argudio ugari» daudela adierazi zuen Zamorak. Berria - Euskal Herria

Estradizioa bertan behera gelditu da babes helegitea erabaki artean. Berria - Euskal Herria

Auzia «preskribituta» dagoela eta **estradizioa** ez dela bidezkoa. Berria - Euskal Herria

Chiracek esan zuen auzitegiak **estradizioa** aginduko ez balu berak aginduko lukeela. Berria - Mundua

Ikerketa egiteko eskatu du, «dirudienez, oinarrizko eskubideak bortxatu direlako» **estradizioaren** tramitazioan. Berria - Euskal Herria

Orotara 25.000 sinadura bildu dituzte **estradizioaren** kontra. Berria - Mundua

Parisko Helegite Auzitegiak Italiak eginiko eskaera onartu zuen atzo eta, beraz, Cesare Battisti Frantzian babes harturiko ezkerreko militante ohiaren **estradizioari** oniritzia eman dio. Berria - Mundua

Gomez eta Ugarteren **estradiziorako** bista 23ra atzeratu dute. Berria - Euskal Herria

Errusiara estraditatzeko agindua zen, baina ez berehala... **estradiziorako** dokumentua iritsi eta handik astebetera baizik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bai eta gogorki salatuz tortura eta tratamendu txarrak, preso direnak herritik urrun atxikitzea edo berdin iheslarien kanporatze eta **estradizioak**. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Versailleseko Administrazio Auzitegiak Espainiaratze agindua bertan behera utzi zuen 2000ko irailean, **«estradizio** mozorrotua» zenez legez kanpokoa zela argudiatuta. Berria - Euskal Herria

Onartutako **estradizioak** eta euroaginduak. Berria - Euskal Herria

Xabier Larekiren aurkako **estradizio** prozedura abiatu du Frantziak. Berria - Euskal Herria

Aitzol Gogorzaren aldi baterako **estradizioa** gauzatu du Frantziak. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Presondegiko zuzendariarekin ere mintzatu ahal izan da ordezkaritza bat, bereziki Fermintxo-ren **estradizio** arriskua aipatzeko bai-eta presoek euskarazko prentsaren errezebitzeko dituzten trabak salatzeko. Herria

Asilo politikoa emateko baldintzarik ez du betetzen, eta AEBen **estradizio** eskaera errespetatzen duela adierazi du. Berria - Kirola

Haatik espiniaratua izaiteaz beldur da, nahiz Espainiak ez duen **estradizio** galderik egin Frantziari. Herria

Rakel Garcia eta Luis Morenoren aurka Belgikan abiatutako **estradizio** prozedura. Berria - Euskal Herria

Konponbidearen aurkakoei men egiten die **estradizio** erabakiak. Berria - Euskal Herria

Garrantzitsuena da Mexikon arlo juridikoan lan egiten duen jendea **estradizio** legearen aurka agertzen ari dela. Berria - Euskal Herria

Espainia-Mexiko **Estradizio** Itunak Mexikoko Konstituzioa urratzen duela argudiatu zuen defentsak. Berria - Euskal Herria

Estradizio espedientea sakon aztertuz gero, argi ikusten da ez dagoela haien kontrako akusaziorik, horrelako delituekin lotuta. Berria - Euskal Herria

Erabaki hori ere ez zen gauzatu, **estradizio** auzian azken hitza duen Estatu Kontseiluak atzera bota baitzuen Belgikako Gobernuaren erabakia. Berria - Euskal Herria

Ustelkeria eta giza eskubideen urraketa leporatzen dizkiote Fujimoriri, eta **estradizio** prozesuak irauten duen bitartean atxilotuta atxikitzea galdegin zion Txileri. Berria - Mundua

Estradizio kasuei buruz ere aritu zen Theo Van Boven Batzar Nagusian, Torturaren Kontrako Itunak jasotzen dituen eskubideak gogoratzeko. Berria - Euskal Herria

Espainiako eta Mexikoko gobernuek izenpetutako **estradizio** hitzarmena euskaldunentzat espresuki egina dela ere esan zuen Agudok. Berria - Euskal Herria

Sanchezen kasuan, Frantzian preso egonik, **estradizio** tramiteak beranduegi hasi dituztela eta, bera presente egon gabe, ezin dela epaiketa hasi. Berria - Harian

1981eko maiatzean, Tomas Linaza errefuxiatu lemoarraren aurka **estradizio** epaiketa egin zuten Parisen. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abokatuek estradizio (3); **aki esparzaren estradizioa** (3); **atzerri ministerioak estradizioa** (3); **aurkako estradizio** (20); **aurkako estradizio eskaera** (8); **auzitegiak estradizioa** (3); **beste estradizio** (6); **beste estradizio eskaera** (4); **bi estradizio** (4); **bigarren estradizio** (3); **du estradizioa** (3); **egindako beste estradizio** (3); **egindako estradizio** (17); **egindako estradizio eskaera** (9); **egindako estradizio eskaerak** (3); **egindako estradizio eskaerari** (3); **eginiko estradizio** (5); **eginiko estradizio eskaera** (3); **espainiak egindako estradizio** (3); **espainiak estradizio** (4); **espainiak estradizio eskaera** (3); **esparzaren estradizioa** (3); **estradizio auzia** (14); **estradizio epaiketa** (4); **estradizio eskaera** (89); **estradizio eskaera atzera** (5); **estradizio eskaera bat** (3); **estradizio eskaera baten** (3); **estradizio eskaera berretsi** (3); **estradizio eskaera egin** (10); **estradizio eskaera ez** (6); **estradizio eskaera onartu** (8); **estradizio eskaerak** (16); **estradizio eskaeraren** (21); **estradizio eskaeraren aurka** (4); **estradizio eskaeraren aurkako** (3); **estradizio eskaerari** (10); **estradizio eskaerarik** (7); **estradizio eskaerarik ez** (3); **estradizio eskaria** (9); **estradizio ituna** (5); **estradizio prozedura** (5); **estradizio prozesu** (4); **estradizio prozesua** (9); **estradizio prozesua bertan** (3); **estradizio prozesuan** (3); **estradizioa belgikak** (3); **estradizioa bertan** (4); **estradizioa bertan behera** (4); **estradizioa eskatu** (17); **estradizioa eskatu dio** (3); **estradizioa eskatu du** (4); **estradizioa eskatu zuen** (4); **estradizioa eskatuko** (4); **estradizioa eskatzea** (4); **estradizioa eskatzeko** (5); **estradizioa eskatzen** (3); **estradizioa ez** (6); **estradizioa onartu** (6); **estradizioa onartu du** (3); **estradizioa onartzea** (3); **estradizioa onartzekotan** (4); **estradizioa onartzen** (4); **estradizioaren alde** (9); **estradizioaren alde egin** (4); **estradizioaren aldeko** (7); **estradizioaren aurka** (5); **estradizioaren aurkako** (8); **estradizioen aurkako** (3); **estradiziorik ez** (3); **eta estradizio** (12); **eta estradizioa** (7); **eta estradizioak** (3); **euskal herritarren estradizio** (3); **euskal herritarren estradizioa** (3); **euskal presoen estradizioaren** (4); **euskaldunen estradizioa** (3); **garciaren estradizioa** (3); **garzonen estradizio** (3); **gobernuak egindako estradizio** (10); **gobernuak estradizio** (3); **gobernuak estradizioa** (3); **gobernuaren estradizio** (3); **haien aurkako estradizio** (4); **haren estradizioa** (9); **haren kontrako estradizio** (3); **herritarren estradizio** (3); **herritarren estradizioa** (3); **hirugarren estradizio** (4); **iñ kontrako estradizio** (15); **kontrako estradizio eskaera** (3); **kontrako estradizio eskaeraren** (3); **larizen aurkako estradizio** (3); **larizen estradizio** (3); **ministerioak estradizioa** (3); **presoen estradizioaren** (4); **sei euskaldunen estradizioa** (3); **zuten estradizio** (3)

---

estraeskolar *iz* eskola orduez kanpoko jarduera.

Ulertuz elkarteak garatzen dituen ekintzen artean daude, besteak beste, familiei orientazioa eskaintzea eta pare bat ikastetxetan haur gorrei zuzendutako **estraeskolarrak** eskaintzea. Berria - Euskal Herria

---

estrafalario *izond* bitxia, nabarmena, xelebrea.

Une batean pentsatu nuen zer harrera-klase egingo zidaten Arantzazun gizaki **estrafalario** harekin iritsi eta "hemen daukazue kanona" esaten banuen. Jon Alonso

Cowboy bota punta luzedun **estrafalarioak**. Sonia Gonzalez

---

estragalaktiko *izond* gure galaxiaz kanpokoa.

Ez nekien arra ala emea zen, ezin asma bistan dena, espazio **estragalaktikoen** trebeskatzeko erabiltzen zuen apainduraren azpian. Itxaro Borda

---

estragasnatar *izond adkor*

Nire amets **estragasnatarra**. Itxaro Borda

---

estraina ik **estreina**.

---

estrainaldi *iz* estreinatzen den aldia.

Foroaren **estrainaldiari** «luxuzkoa» iritzi zion Joan Mari Torrealdaik, lehen hizlariaren, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxeren aurkezpena egitean. Berria - Harian

---

estrainatu **1** da/du *ad* saiatzen hasi; lehen aldiz erabili.

Ezustekoa izan zen niretzat atzo egunkariren batean irakurri nuena: Rebellin eta biok etapa berean **estrainatu** ginen: duela 13 urte Errenterian. Berria - Kirola

Berriturik **estrainatu** dute. Herria

Marinel gordin, **estrainatu** berriak. Bernardo Atxaga

2 atzerrita desterratu.

Han topo egin zuen Mario Onaindia, Teo Uriarte, Larena eta Dorronsororekin, eta elkarrekin egin zuten Bruselara bidaia, **estrainatu** gisa. Jokin Urain

---

estrainatze *iz* lehen aldiz saiatzen hastea.

Ainitz jende Elizondon, Antxitoeneko trinketean, oroitzapen haundiak dituen trinketean, **estrainatze** horrendako. Herria

---

estraineko **1** *izlag* lehendabizikoa.

Jean Haritxelhar ordezkatu eta euskaltzainburu berria da; **estraineko** bilbotarra Euskaltzaindiaren historia luzean. Iñigo Aranbarri

Chicarela (Flitter taldeko Javi Zurbano gitarristaren proiektu berria), Ezinean (Azpeitikoak, hardcore melodikoa lantzen dute) eta Sök (Iruñea, rock melodikoa) taldeen **estraineko** lanak kaleratuko ditu Gorrek uda aurretik. Berria - Kultura

Rossatok ongi ikusi zuen bere burua **estraineko** partidan. Berria - Kirola

Unbe kafetegiko hitzorduaren porrot itzela jasan ondoren, hoztu egin zitzaion **estraineko** poz hura. Joxemari Iturralde

Atzoko **estraineko** zenbakiaren ondoren, otsailaren erdialdetik aurrera hasiko da egunero kaleratzen eta nahi duten donostiar guztiek etxean jaso ahal izango dute, doan. Berria - Harian

Ikertzaileekiko **estraineko** harremana Miramar jauregian buruturiko udako ikastaro batzuetan izan genuela. Andoni Egaña

Nire bizitzan **estraineko** aldiz pentsatu nuen ez zegoela niretzat inongo babesik, bakar-bakarrik atera beharko nituela babak eltzetik. Fernando Rey

Joseba Andoni Larreategi, Mertxe Gil eta Sendoa Ortega aktoreek Bakarrik izeneko neskatilaren ibilierak antzezten dituzte **estraineko** aldiz Leioako Umore Azokan. Berria - Kultura

Proustez hitz egiten zuten, gazte hura proustzale sutsua baitzen, are gehiago, Italian Prousti buruz idatzi zuen **estrainekoa** zen. Fernando Rey

2 ***estrainekoz*** lehendabizikoz.

Rekarte da, hain zuzen, harrobiak postu horretan eman duen azken jokalaria, eta zortzi urte igaro dira jada Ligan **estrainekoz** jokatu zuenetik. Berria - Kirola

Biharko batzarra, beraz, akziodunen lehen batzar nagusia izango da, eta **estrainekoz**, 24.404 akziodunek izango dute bertan parte hartzeko aukera. Berria - Euskal Herria

2003an Europan azaldu zen **estrainekoz**, Alemania, Belgika eta Herbehereetan. Berria - Gaiak

---

estrainio *(orobat **estraino** g.er. eta **estraño** g.er.) izond* **1** bitxia, arraroa.

Neguarekin heldu da Lucy iparraldeko hiri **estrainio** argiz beterikora. Pablo Sastre

Duela zortzi urte bizia aldatuko zidan berria hartzean bezala, zorabio hura berritzeko aukera izan nuen, geroan ere, aita erraten zidan izaki **estrainio** horren aitzinean. Aingeru Epaltza

Animalia **estrainioa** sentitu nintzen, baita legez kanpoko animalia ere, zilegi bazait horrelakorik esatea. Berria - Kultura

Bazen arrantzalerik eta jende **estrainiorik**, anitz herri urrunetarik ontziz heldu zenik. Juan Garzia

Narguilea (arabiarrek erabili ohi zuten pipa **estrainio** hura) erretzera gonbidatu zuen. Xabier Aranburu

Labe **estrainioa** zen, eta flasko garden bat zeukan gainaldean. Xabier Aranburu

La asesina ilustrada liburu **estrainioa** da, eta ez soilik narratzen dituen gertakariengatik, hemen ez ditudanak erabiliko. Iban Zaldua

Horientzat ere arrotza zen atzerritar larruzuri perla-bilatzaile bakarti hura, hizkuntza **estrainio** batez mintzo zena. Xabier Mendiguren Elizegi

Zeren jauregirat itzultzerakoan, bere irri **estrainio** harekin ikusi bainuen. Joan Mari Irigoien

Mehatxu handiago batekin ihardetsi zidan amak, arestian ez bezala ezin hotzago, irri **estrainio** bat ezpainetan: [...]. Joan Mari Irigoien

Esan zituen azken silabak biriketatik igotzen zitzaion arnas **estrainio** baten azken bafadekin hil zitzaizkion, ezpainetatik beruna bezala amilduko bailiran. Jon Alonso

Udaberriko gau **estrainio** horietako bat zen: euririk ez, eta hego-haize moduko bat zetorren ibai aldetik. Iban Zaldua

Usain **estrainio** eta definigaitza darie erietxeei, lurrin mota askoren emaitza, ziurrenik. Iban Zaldua

Hiribideak zabalagoak iruditu zitzaizkidan, eta distira **estrainio** bat zeriola egunsentiari. Iban Zaldua

Lehengoan zure amak kontatu zidan nola egin zenituen, orain dela hilabete batzuk, komunioneari buruzko hainbat galdegite **estrainio**. Joan Mari Irigoien

Miranderen mundua ulertzea beraz, beldur izan baikintezke, bitartean hori bera zerbait **estrainio** ez ote zaion geratzen ari irakurleria gazteenari. Joxe Azurmendi

Mintzatzea beharrezkoa da gizartean bizitzeko, baina gizarteak berez dauka badoana, desberdina eta **estrainioa** geldiarazi, berdindu eta ulergarri bihurtzeko seta. Markos Zapiain

Une horietan nire kanpamenduko dorrean kanpaiek dantza ero **estrainio** bati ekiten diote, gudara deituz. Pedro Alberdi

Ahots horrek areagotu egiten zuen esnatu nintzenetik nire baitan sentitzen nuen sentimendu apartekoa, ohi ez bezalakoa, **estrainioa**, eta hortaz, apur bat beldurgarria ere. Jon Alonso

Itzartu naizenean etxean sentitu naiz, era bitxi, **estrainio**, urrun batean. Edorta Jimenez

Estrainioa da, besteak beste, haren bi edizio daudelako. Iban Zaldua

"Zenbakiak ez dira berez **estrañoak"** esan zuen Romanek. Unai Elorriaga

Uharte horri buruz historiarik **estrainioenak** kontatzen ziren. Juan Garzia

Interes hura **estrainioa** eta ulergaitza egin zitzaidan, baina erabaki nuen ez nuela zertan iritzia aldatu. Anjel Lertxundi

Neue Nationalgalerie **estrainoan** non erakusketa aretoak lurpean diren. Berria - Kultura

2

Gaur **estrainio** sentitzen naiz. Patxi Zubizarreta

Beharbada horregatik ere sentitu naiz **estrainio** samar, horregatik eta Tomengatik. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estrainio bat (13); **estrainio batek** (4); **estrainio hura** (4); **estrainio sentitu** (3); **estrainioa eta** (3); **eta estrainio** (3); **izaki estrainio** (3)

---

estrainiotasun *adlag* estrainioa denaren nolakotasuna.

Estrainiotasuna. Patxi Zubizarreta

---

estraino ik **estrainio**.

---

estrajudizial *izond* bide judizialetik at egiten edo bideratzen dena.

Ezin zaie agiri judizialei, **estrajudizialei** edo administratiboei agiri ofizial baten itxura eman. Berria - Harian

Antzeko hilketa **estrajudizialaren** biktima izan zen. Berria - Kultura

Presoen suizidioak, finean, heriotza-zigorra zeharka nahiz bide makiabeliko **estrajudizialetatik** erabiltzea esan nahi du. Berria - Euskal Herria

---

estrajudizialki *adlag* bide judizialetik at.

«Ezkutuko heriotza zigorra» **estrajudizialki** ezartzen ari direla nabarmendu zuen Manzanosek. Berria - Euskal Herria

---

estrakomunitario *iz* autonomia-komunitatearen kanpokoa dena.

EAJk eta EEk ohar bateratu baten bidez gezurtatu zuten albistea, hurrengo egunean: «Polizia autonomoak zerbitzu guztietan izango ditu eskumenak, izaera suprakomunitarioa eta **estrakomunitarioa** dutenetan salbu». Berria - Euskal Herria

---

estrakto ik **estraktu**.

---

estraktu *(ETCn **97** agerraldi, orobat **estrakto** ETCn **14** agerraldi) iz* zuku edo kideko bat konzentratzean lortzen den produktoa. ik **aterakin**.

Flasko argiek, kolore berde, gorri, hori leunekoek likore ezezagunekin eta gardentasun aparteko lore **estraktoekin** amets eginarazten zuten. Karlos Zabala

Odol zelulekin eginiko saioetan ikusi dute garagar **estraktoak** infekzioak blokeatzen dituela. Berria - Gaiak

Coli intsektuaren **estraktu** batekin egin dute. Berria - Gaiak

Estraktu horri material genetiko guztia kendu zioten, esperimentuan erabili aurretik. Berria - Gaiak

---

estralinguistiko *izond* hizkuntzaz kanpokoa.

Ondo esate horretan sartzen dira alderdi prosodikoak (intonazioa, isiluneak), alderdi paralinguistikoak (ebakera, erritmoa...) eta **estralinguistikoak** (keinuak, jarrera, distantzia...). Txema Ramirez de la Piscina

---

estralurtar *(orobat **extralurtar**) izond* Lur planetatik kanpokoa. ik **alien**; **alienigena**.

Emazte dominatzailea da **estralurtarra**. Berria - Kultura

Aimarrek oso ondo jokatzen du defentsan, erasoan ere trebea da, baina ez da **estralurtarra**. Berria - Kirola

Aimar ez **estralurtarra**. Berria - Kirola

Orain, gaur egungo errealitatean integratzen ez diren gizon horietakoa da, arrarotzat daukate denek, **extralurtarra** balitz bezala. Pako Aristi

Harri ederreko etxe eta bazter berdeen erdian, kasik **extralurtarrak** elkarren artean mintzo dirute... Berria - Kultura

---

estramonio *iz* asma-belarra.

Amazonastik etortzen ziren berrien arabera, Mitxoleta burutik zeharo egina omen zegoen, soa infinituan galdu egiten zitzaion, **estramonioa** edo asma-belarra neurriz gain hartu dutenei gertatu ohi zaien bezala Jon Alonso

---

estranguladore *iz* estrangulatzailea.

"The Poor Strangler" deitzen zioten, "itotzaile gaixoa edo **estranguladore** gaixoa", J.M. Olaizola "Txiliku"

---

estrangulatu, estrangula(tu), estrangulatzen du *ad* eztarria estutuz arnasa hartzea eragotzi hil arte.

Ihesginak **estrangulatu** egin nahi izan du, baina alargunak ileko gantxoarekin mehatxatu eta eskulotu egin du. Koldo Izagirre

Aurre egiten zaienean koldar nazkagarriak baino ez dira.Pretendiente likits horiek banan-banan **estrangulatuko** ditut. Koldo Izagirre

Ez dakit pistolaz edo **estrangulatuta** hil ote nuen, baina neuk hil nuela seguru nago. Josu Landa

estrangulatzaile *iz* estrangulatzen duen pertsona.

Bideoa sortu zenean zinemaren «Bostongo **estrangulatzaile**» gisa aurkeztu zuten. Berria - Gaiak

estranjer ik **estranjero**.

estranjeria *iz* atzerria.

Matuszak andereak galde berezi bat eginik, jadanik ikasleer emaiten den laguntzaz bestalde, laguntza emendakin bat egina zaio, 100 eurokoa, **estranjerian** formakuntza egiteko. Herria

Ezin-sinetsia zaiela Europari Frantziak ezaren bozkatze hori, horra zer erakutsi nahi ukan duten ahoan bilorik gabe **estranjerian** diren frantsesek hala-nola Ruandan bizi direnek bezala: baiaren alde bozkatu izan dute alabaina erreferendumean herriz kanpoko frantses horiek. Herria

Meillaneko Isidorren semea, Joakin, **estranjeriara** joan zena izan behar du. Joxemari Urteaga

estranjero *(orobat **estranjer**) izond/iz* atzerritarra.

Eta hola, nola lagako nionan bada, bazter guztietan mutil **estranjero** batekin nenbilela zabaltzeko aukera emanaz maripurtzil haiei? Xabier Mendiguren Elizegi

Gaurko egunean, Frantzian badira jadanik lau miliun eta hiru ehun mila **estranjer**. Herria

Frantses batekin esposatzen den **estranjer** bat ez da paperez orai arte bezen errexki frantsestuko. Herria

Eta ez pentsa Donostiakoak bakarrik zirenik Doña Rosaren trajeak eramaten zituztenak, Madrilgoak ere bai asko, eta urrutiagokoak ere bai, **estranjeroak** eta gutzi, makina bat paristar-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Orai ere, **estranjer** ekarriak dira frangotan legez frantsesak ez diren guziak. Herria

Ba omen dira asko toki Frantzian, hainitz europatiar **estranjerez** betetzen ari direnak. Herria

estraño ik **estrainio**.

estraofizial *iz*

-Lan **estraofiziala** beharko luke. Fernando Morillo

Hollywoodeko anfitrioi **estraofiziala**. Fernando Rey

Hizkuntza **estraofiziala**. Berria - Mundua

Hankapalorenean biltzen hasi ginen, eta hura bihurtu zen, horrenbestez, gure koadrilaren zitaleku ohikoa eta baita mobida gehienetako bulego **estraofiziala** ere. Xabier Mendiguren Elizegi

estraofizialki *adlag (corpusean **extraofizialki** soilik) adlag* era estraofizialean.

Kimioterapia ematen dion erizainak ere gauza bera esan zion, **extraofizialki**. Berria - Harian

estraperlo *iz* merkataritza ilegala, tasa duten edo Estatuak atzeman dituen artikuluak garestiago saltzean datzana.

Ez da behar bezala aztertu gerra ondoko **estraperloa**, gutxiago liburu kontrabandoa, baina klandestinitatean jasotako hainbat aldizkari eta liburuekin euskaltzaletua da *Katakunbetako belaunaldia* deitua. Anjel Lertxundi

Gurasoen jaioterrira itzuli eta Ezterenzubin (Behe Nafarroa) egin zuen haurtzaroa, eta **estraperloan** jardun zen Orbaitzetan eta Garraldan, gaztaroan. Berria - Kultura

Euskal Herrian **estraperloan** aritu ondoren, 1965ean hartu zuen Arizonarako bidea, artzantzan jarduteko. Berria - Kultura

Atxikoria-ura su gainean, eta bezperan **estraperloan** lortu ahal izan nituen ogi zuri bi mahaiaren gainean. Inazio Mujika Iraola

Esan nizun Margarenean edozenbat arroz aurki dezakezula **estraperloan**, esaiozu gaixotasunagatik dela eta nik errezetatutakoa, ea apur bat merkeagoa egiten dizun. Josu Landa

Herrirakoan, berriz, ez zen eroslerik falta, ondo estimatua baitzen sasoi hartan **estraperloak** eskain zezakeen guztia. Joxemari Urteaga

Estraperloak irabazi eder askoak bideratu zizkion. Patxi Zubizarreta

Ez nekien Gorritira bidean ibiltzen zinenik gauez **estraperloko** irina ekartzeko. Arantxa Iturbe

Estraperloko etekina ezkutuan utzi ondoren, herrirako itzulera isilean egin zuen Erramunek. Joxemari Urteaga

estraperlokide *iz* norbaitekin estraperloan ari den laguna.

Hautsak harrotzen hasteak baino isiltzeak ondorio probetxugarriagoak ekarriko zituelakoan, **estraperlokideen** hitza egia bihurtu zen herrian, eta laster ahaztu zen Alustizakoarena. Joxemari Urteaga

estrapolatu, estrapola, estrapolatzen du *ad* ezaguna den zerbait beste alor batean aplikatu ondorioak ateratzeko.

Kopuruak ikaragarriak ziren, baina Flora ona zen matematiketan, eta laster **estrapolatu** zituen orotarako datuak hamarrekoetara. Oskar Arana

Fermaten aierua **estrapolatuz**: zenbaki oso baten n-garren bi berreturen batura ezin da izan zenbaki oso baten n-garren berretura: xn yn=zn. Jon Muñoz

Mantuako Medikuen Institutuak aipatzen dituen datuak 1974-1991ko errauste planta batenak direla diote Txingudi Zerbitzuek; eta beraz, ezin direla beste inongo egoeretara **estrapolatu**. Berria - Euskal Herria

Emaitzak **estrapolatu** ostean, kutsatutakoak 3.800 pertsona inguru izan daitezkeela esan dute. Berria - Gaiak

Laborategiko frogetan gizakiari ez beste abereei ematen zaie botika, eta laborategiko baldintza kontrolatuetan lortutako emaitzak gizakira **estrapolatzea** problematikoa da ezinbestean. Berria - Gaiak

Madrilen azterketak egin dira eta horko datuak gainontzeko herrialdeetara **estrapolatuz**, uste da 70ko hamarkadan mila bat gizon sartu zituztela preso homosexualak izateagatik. Berria - Euskal Herria

Quine-ren adierazpena erabiltzeko, hizkuntz teoria batek azalpen orokorra emango dio hizkuntzan egon litekeenari, "dagoena gehi dagoena deskribatu eta **estrapolatzen** duten arauen soiltasunean" oinarriturik. Itziar Laka

Bestela esanda, igelekin ozta-ozta lortzen zena besterik gabe **estrapolatzen** zuen hainbatek gizakietara. Juan Garzia

Garbi erakutsi, alegia, azterketa genetikoaren mugak, bera giltza guztien jabe ez den esparru batera **estrapolatu** gabe. Juan Garzia

---

estrapolazio *iz* estrapolatzea.

Kontuan izanik hiru emakumetik batek baino ez dituela tratu txarrak salatzen, datuen **estrapolazioa** eginez esan daiteke Hego Euskal Herrian 15.000 emakume inguruk jasaten dutela bikotekidearen indarkeria. Berria - Harian

Errazkeria litzateke datuon **estrapolazioa** eginda paralelotasun ideologikoak ontzea. Iñigo Aranbarri

Ematen du hau guztia gertatzen dela zuk hartu duzulako azterketa-metodo garaikideetatik, ez lan enpirikoa eta serioa, baizik eta bi edo hiru gai, **estrapolazioak** direnak beharrezko hastapenak baino gehiago. Xabier Arregi

---

estrapozo ik **estropezu**.

---

estrapozu ik **estropezu**.

---

estrapozuka ik **estropezuka**.

---

estrapu *iz* estroboa.

Hondarribiak, Ur Kirolak-ek, Oriok, Castrok eta bi galiziarrek Cabo da Cruz eta Tiranek Lituanian eginiko arraunak dituzte tolete eta **estrapuen** artean. Berria - Kirola

---

estrasesko *izlag***

Ile horaila zuen, motots estu batean atzerantz orraztua eta **estrasezko** urkila batez eutsia. Koro Navarro

---

estrata *(orobat **estarta**)* **1** *iz* hesi edo hormen arteko bide edo kalea, eskuarki meharra edo aldapan dagoena. ik**galtzada**.

Bidea **estrata** zela esan dut. Gotzon Garate

Makadamez eginikoa zen, ez **estrata** edo bidetxoa, baina zuloak zituen ugari. Xabier Montoia

Etxean asperturik, noraezean hasi zara **estratan** gora **estratan** behera, neoizko letrero handidun zulo honetaraino. Sonia Gonzalez

Herritik gertu geundela, gu genbiltzan **estratatik** Guardia Zibilaren lanroberrak ikusi genituen errepide nagusian gora Uitziko mendaterantz. Juan Luis Zabala

Erreka-bazterretik, **estratan** behera akuilatu du behia, errepideraino. Patxi Iturritegi

Norak ez zituen, ordea, bideko tranbala eta neke haiek sentitu ere egiten, berdintsu baitzitzaion bide zelaia nahiz harritsua, galtzada nahiz euri-jasek hondatu eta lokaztutako **estrata**. Anjel Lertxundi

Erromatar itxurako **estrata** lauzaztatu, oker eta estuan. Koldo Izagirre

Kamino, xendra, zidor eta **estratetan** barrena, errekan sartuz eta eguzkitan lehortuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Zabortegitik behera egin genuen hurritzen artean Errekalderaino, hango beste baserria, emakumea **estrata** zaharreko bihurgunean azaldu baino lehen. Koldo Izagirre

Igaro zen **estrata** luzea, igaro zen San Floreano bere zanga eta taberna ondoko plaza zabalarekin, igaro zen Casarsara zeraman errepide luzea dena bihurgunez betea, berdezko galeriapetan; eta hona Casarsako lehenengo hormak, kedartuak, harrizkoak, errepide alkaternaztatuaren ondoan. Josu Zabaleta

Erruki Etxea ez zegoen elizatik urruti, zinema aretoaren aurrean, galeria ondoan **estrata** zabaldu eta adartzen zen tokian bertan. Josu Zabaleta

Ikusten ditugu bi mundu, eta mundu batean daude goiko kalea, beheko plaza, erdi kalea, zeharkalea, kale okerra, porru kalea, asto kalea, tranpa kalea, zapatari kalea, eliz kalea, kantoi zikina eta horien gisako kale, plaza, kantoi eta **estratak**, eta beste munduan, berriz, Elkano, Sarasate, Pio XII, [...] Foruen, Askatasunaren, Independentziaren, Konstituzioaren edo Autonomiaren kaleak, plazak, ibilbideak, pasealekuak. Iñaki Segurola

Berekoikeriak egin ditu **estrata**, bidea, kalea, trenbidea, itsasontzia, dena. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Miresmen horrek bidea osatzen laguntzen dit, bizitzaren **estrata**, merezi duen zerbaiten atzetik, uki dezakedan zerbaiten atzetik, eta ez amets lurruntsu baten atzetik. Juan Kruz Igerabide

Errealitatearen azken portutik irudimen betearen bentara bitarteko **estratetan** barrena egindako txangoak. Anjel Lertxundi

Gizontasuna, emakumetasuna eta horien **estratatik** abiatu ezkero, laster dugu aurrera egiten utziko ez digun sasia. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estratan gora** (4); **estratetan barrena** (3)

---

estratatxo *iz adkor* estrata.

Ez dut kalean inor ikusten lorategiko **estratatxoa** pasatu eta burdinazko atetxotik ateratzen naizenean, poliki noa autoa aparkatuta dagoen tokirantz, Mikel Hernandez Abaitua

---

estratega **1** *iz* estrategian aditua den militarra.

Ez baita beharrezkoa Napoleon edo Clausewitz bezalako **estratega** izatea konturatzeko ezen, mairuek mezulariei eskua eransteko gogoa edukiz gero, eta hauek ospa egin nahi izatera, estuarioa hor egongo zela agudo atzera egiteko edozein saio mozteko, baldin eta, bitartean, moriskoen oldar-brigadek, inguratze-mugimendua eginez, ez bazituzten lehorreratzeko gabarrak hondatzen.-Izan ere, **estratega** on bat duk gerra irabaztetik galtzera dagoen aldea. Jon Alonso

Konstituzio demokratikoa zuen Tarentok, eta zazpi aldiz hautatu zuten Arkitas **estratega**. Jon Muñoz

Tarento ahaltsuarekiko gerra baten beldurrez, amore eman zion Dionisiok **estrategaren** nahiari. Jon Muñoz

Handik ez oso luzera, gainera, Erakundean gora egitea lortuko zian, eta bertan iraungo zian, **estratega** aparta horrek, atxilotu zuten arte. Jokin Muñoz

2 *irud/heh*

Castillo jeneralak mundu honetara ekarri zituen 26 kreaturetako bat da eta, ikusten den legez, maitasun batailetan **estratega** handia dugu hura. Edorta Jimenez

Manipulazioaren **estratega**. Hemengo **estratega** komunikatiboek AEBetan dute beren iparra. Txema Ramirez de la Piscina

---

estrategia *(orobat **estrategi** g.er. eta **eztrategia** g.er.)* **1** *iz* gerra operazioak planifikatzeko eta bideratzko artea; helburu jakin bat lortzeko ekintza ongi pentsatuen multzoa.

Estrategiari, taktikari eta filosofiari buruzko azalpenak lagungarri gerta dakizkizuke denbora irabazteko. Rafa Egiguren

Diagnostikoa eta **estrategiak**. Berria - Ekonomia

Estrategiak anitz dira, helburua bakarra: denak iraun dezala dagoen moduan. Berria - Kultura

Estrategiak aurrez prestatzen badira ere, karrerak aurrera egin ahala uneoro aztertzen dira horiek, xehetasunak aldatzeko. Berria - Kirola

Merkantilisten **estrategia** barne-ekoizpena sustatzea zen, inportazioen kontra hura babestuz eta esportazioak indartuz. Koro Navarro

Euren **estrategia** itsuan ez erasotzea da, eta gol jokaldiak atzean hastea. Berria - Kirola

Hor, Maimonen **estrategia** jeniala da. Xabier Kintana

Hura guztia **estrategia** ezinago ongi taxutu bati zegokion. Karlos Linazasoro

Marketina ez al da ba izango, pertsuasioaren eta informazioaren distortsioaren bidez (labelak, zertifikatuak, cause marketing kanpainak, eta abarrek sorturikoak), kontsumitzaileari indarra kentzeko beste **estrategia** bat? Iñaki Heras

Estrategia hori zorrotz aplikatu zuen NDFk. Koro Navarro

Estrategia horren arabera, ez dago triangelutasunik, objektu banakoak eta antzekotasunaren erlazioa baizik. Askoren artean

Estrategia horren porrotaz inork ez du gaur egun dudarik egiten. Koro Navarro

Naval salbatzeko **estrategia**. Berria - Ekonomia

Munduko beste eskualde batzuek -Latino Amerikak, Ekialdeko Europak, Indiak- industria- esportazioak sustatzeko **estrategia** bultzatu zuten. Koro Navarro

Gure jarduera baldintzatu baino, gure **estrategia** berretsi genuen orduan. Berria - Euskal Herria

Eusko Armadaren **estrategiaren** arduraduna. Itxaro Borda

Estrategia hari esker libratu zen azalpen zailak eta mingarriak eman behar izatetik. Karlos Linazasoro

Garapenaren **estrategia** edo aldaera ezberdinez, **estrategiaren** garapena. Itxaro Borda

Alde batetik, galdekatzaileak, eta, bestetik, galdekatua; **estrategia** biren arteko tirabiraren kontakizuna, azken batean. Rafa Egiguren

Frustraturik sentitzen direla, irainduta, gizonezkoek gaizki interpretatzen dituztelako beren adiskidetasun adierazpenak, seduzitzeko **estrategiak** edo sexu harremanetarako deiak bailiran. Ramon Saizarbitoria

Badakigu zein diren denbora irabazteko **estrategiak**. Berria - Ekonomia

Esportazioen sustapenerako **estrategiak** bultzatzea. Koro Navarro

Bere **estrategiari** esker irabazi zuen. Michel Oronoz

Estrategiaz egiten da gerra, aholku egokien poderioz lortzen garaipena. Elizen arteko biblia

Herren dago gure zientzia eta teknologia garapenerako sistema, oinarrizko ikerkuntza eta **estrategiazko** ikerketaren hanka, gizarte aurreratu batek eskatuko lukeenaren aurka, garatu gabe baitaude. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikerketa eta garapena, **estrategiazko** jardueretan nagusi izaten dena, enpresaren lurralde nazionalean egiten da ia osorik. Koro Navarro

Estrategiazkotzat jo beharko genuke bizitza osorako prestakuntza horretarako eskaintza, honen inguruan sortuko baita unibertsitateen arteko lehia garrantzitsua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eraketa diskurtsibo baten agerpenak berarekin dakar objektuen berritze zabala, enuntziazio-erena, kontzeptuena eta **estrategiena**. Xabier Arregi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estrategia informatibo nagusiak inoiz baino politikoki zuzenago, hierarkizatuago eta aspergarriago diren urteotan, hemen bestelako ekimen komunikatibo interesgarri eta berritzaileak garatu ditugu. Txema Ramirez de la Piscina

Estrategia zuritzailearen hirugarren urratsa. Jon Alonso

Estrategia liberalaren helburua izan da merkatuaren onerako estatuari pisua kentzea, eta aitzakia polita izan da globalizazioarena. Iñaki Heras

Autodeterminazio eskubidearen inguruan bildutako eragileen **estrategia** nazional eta demokratikoa. Berria - Ekonomia

Euskararen legea hor dago eta horren kontra **estrategia** komuna behar da. Berria - Euskal Herria

Aldika baino ez zion begiratzen, erasotzeko **estrategia** zuzena zein ote zen urduritasunez hausnartu bitartean. Jon Arretxe

Poliziaren aldetik **estrategia** ausarta izan zenik ezin uka. Harkaitz Cano

Bizitzak, batzuetan, xake-taula bat ematen du: ondo kalkulaturik dauzkazu mugimenduak, eta, bat-batean, haizeak jo, eta uste ez zenuen pieza bat botatzen dizu, eta zure **estrategia** burutsua hankaz gora ipintzen du. Juan Kruz Igerabide

Nafarroako Gobernuak **estrategia** garbia baliatu du Itoizko urtegiaren auzian: proiektuaren aurkakoak zatitu eta, aldi berean, kriminalizatu. Edurne Elizondo

Altxorreko Estatuko idazkari estatubatuarrak zorraren **estrategia** berri baten ildoak adierazi zituen. Finantzak berrindartzea, **estrategia** berriaren giltzarria zena, merkataritza-bankuen liberalizazio-politikari kontrajartzen zitzaion. Koro Navarro

Estrategia desberdin haien emaitza berdina izaten zen: gauaren amaieran mozkortuta itzultzen ziren biak etxera, eta umore txarrez. Jon Arretxe

Halaxe irudikatu nituen nik ganbitoaren **estrategia** liluragarria ikastean: zaharrak, isilak, pentsakorrak, eta bizkarrak etsaitasun adiskidetsu batez taula gainean okertuak. Alberto Ladron Arana

Estrategia nagusia: kolpea bukaeran. ba ote liteke zerbait zalantzatik at geratzea? J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hain zuzen ere hori izango da **estrategia** kartesiarrak bilatuko duena. Askoren artean

Estrategia multinazionaletatik **estrategia** globaletara. Koro Navarro

Zurekin maiteminduta dagoela esateko deitu du, zuk ere maite duzula eta gureak egin duela... -esan nion garaipena informazioa eskuraraziko zidan nolabaiteko **estrategia** inprobisatuz. Patxi Zubizarreta

Subiranotasunean oinarritutako **estrategia** demokratikoa. Berria - Ekonomia

Eleberriak eta autobiografiak, esaterako, idatziak dira, beharbada ahozko **estrategien** arabera idatziak izan badaitezke ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kataluniarrak ere antzeko **estrategia** bat ari dira lantzen. Alberto Ladron Arana

Orain arte ohiko **estrategia** erabiltzen ez den bi salbuespen mota aipatu ditugu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Amerikar adore, diziplina, **estrategia** eta iraunkortasunaren erakusketarik zirraragarriena amerikarrek elkarren aurka zertutako gerra batean eman zuten. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

EHNk garatu duen **estrategia** planaren arabera, bederatzi herrialdetara bideratuko du jarduna. Berria - Ekonomia

ChevronTexako multinazionalarekin **estrategia** akordioa hitzartu berri du. Berria - Ekonomia

Saudi Arabiaren aberastasunaren iturri den errentaren betikotasuna gorde nahi izatea ikusi da **estrategia**-aldaketa horretan. Koro Navarro

Mindu egin nuen benetan, eta **estrategia**-oker handi bat egin nuen nik horretan. Joxan Elosegi

Industria bultzatzeko estatuaren egituretan sumatzen den **estrategia** falta erabatekoa. Koro Navarro

Adolfek **estrategia**-gelara deitu ditu bere laguntzaileak. Harkaitz Cano

Amorrortuk bazekien Malagaren arma nagusia hasieran egiten duen presioa eta **estrategia** jokaldiak direla. Berria - Kirola

Estrategi kontu huts batengatik -gauza sotil horietarako iaiotasun naturala dut nik sortzez, eta zorroztu egin dut gainera dohain hori bizitzan aurrera egin ahala-, gelan utzi nuen bakarrik eta zikinkeriez hizketan segitu nuen Fernandorekin, eguna argitzen hasi zuen arte. Karlos Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Talde-**estrategian** oinarritzen genuen jardunbidea. Jon Arretxe

Ondo dakite hori enpresek, eta horregatik, komunikazio **estrategiak** egituratu eta abian jar-tzen dituzte beren helburuak lortzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Anfibioek garatu zituzten lehenengo kontaktu **estrategiak**. Luis Elberdin

Hurrengo kapituluak ekintza-metodoak aztertzen ditu, bai komunista eta bai JOCeko taldeen ekintza **estrategiak**. Joseba Zulaika

Bere ekarpenaren aurkako «eraso **estrategia**» salatu du Batasunak. Gerra **estrategian** oinarritutako espetxe politika. Berria - Euskal Herria

Ezinbestekoa da sindikatu abertzaleekin lankidetza **estrategia** finkatzea. Berria - Euskal Herria

Inklusio **estrategia** bat da, eta horretan elkarrekiko erantzukizunaren printzipioa bere erabateko esanguraz ageri da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Iritsi da planak gauzatzeko unea, buruan erabilitako ehiza-**estrategiak** probatzekoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Gene berekoiaren defentsa-**estrategia** seguru asko. Patxi Iturritegi

Hazkunde **estrategia** nazioartean. Berria - Ekonomia

Sexua moldatze **estrategia** eraginkorra da, ume heldugabe eta babesgabeak zaintzearekin eta babestearekin zerikusi duena. Luis Elberdin

Bertsolarien argudiatze-**estrategiak**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Informazio ona lortzeko, egokiena bilaketa **estrategia** bat prestatzea da. Askoren artean

Balorazio-eremua zabalagoa da: premisak, justifikazio-**estrategiak**, etab. hartu beharko lituzke bere baitan. Askoren artean

Garapenaren nazio-**estrategien** eta enpresa multinazionalen inbertsio-**estrategia** pribatuen emaitza. Koro Navarro

Salgai bakoitza zenbatean saltzen den merkatuak erabaki beharrean enpresa **estrategiak** erabakitzen duenez, trasnazionalak badauka irabaziak non izan nahi dituen erabakitzea. Iñaki Heras

Ikusi dugu hirigintza **estrategia** hauek lantzeko ezinbestekoa dela parte-hartzea sustatzea. Berria - Gaiak

Eskualde-**estrategien** nagusitasunak ez du ezkutatu behar ugaltzen ari direla gaur jatorriz eskualde desberdinekoak diren enpresen arteko itunen sareak. Koro Navarro

Hiru adibide aurkezten dira hemen, garapen-bideko herrialdeetan aplikatu diren hiru industrializazio-**estrategiei** dagozkienak. Koro Navarro

Enpresa handien konkurrentzia-**estrategiek** Triadako merkatu bakoitzean kideak bilatzera bultzatzen dituzte enpresa horiek, koiuntura-desberdintasunek sorturiko aukerak baliatu ahal izateko eta lehiakide zuzenen hedapen lasterregi orori kontra egiteko helburuaz. Koro Navarro

Ukazio eta zanpaketa **estrategiak** huts egin du. Berria - Euskal Herria

Konponezinak eta krisiak nahitaez gertatzen direla, baldin eta "bizitza osoko pertzepzio-ohitura eta -**estrategiak**" aldatu behar badira. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

abiatutako estrategia (5); **aldeko estrategia** (6); **aldeko estrategia nazional** (4); **arteko estrategia** (4); **aurka borrokatzeko estrategia** (4); **aurkako estrategia** (9); **baina estrategia** (7); **bake estrategia** (4); **beharreko estrategia** (4); **bere estrategia** (17); **beste estrategia** (13); **beste estrategia bat** (8); **bi estrategia** (11); **borrokatzeko estrategia** (4); **da estrategia** (9); **den estrategia** (10); **dituen estrategia** (5); **du estrategia** (10); **duen estrategia** (18); **duten estrategia** (7); **edo estrategia** (5); **egiteko estrategia** (9); **energia estrategia** (4); **epe luzerako estrategia** (4); **ere estrategia** (5); **errepresio estrategia** (5); **estrategia aldaketa** (7); **estrategia aldatu** (13); **estrategia aldatzeko** (4); **estrategia antolatu** (4); **estrategia argia** (4); **estrategia bat** (46); **estrategia baten** (23); **estrategia bateratu** (4); **estrategia bateratua** (10); **estrategia bati** (4); **estrategia bera** (7); **estrategia berri** (15); **estrategia berri bat** (7); **estrategia berria** (6); **estrategia berriak** (9); **estrategia da** (15); **estrategia dela** (5); **estrategia diseinatu** (4); **estrategia duela** (4); **estrategia egokia** (4); **estrategia erabili** (5); **estrategia eta** (29); **estrategia eta taktika** (4); **estrategia ez** (10); **estrategia ez da** (4); **estrategia ezberdinak** (5); **estrategia gisa** (4); **estrategia globala** (4); **estrategia hauek** (5); **estrategia hori** (25); **estrategia horiek** (9); **estrategia horrek** (13); **estrategia horrekin** (5); **estrategia horren** (20); **estrategia horretan** (8); **estrategia hura** (4); **estrategia izan** (5); **estrategia jakin** (5); **estrategia jokaldiak** (9); **estrategia jokaldietan** (5); **estrategia komuna** (4); **estrategia militar** (4); **estrategia nagusia** (9); **estrategia nazional** (10); **estrategia nazional eta** (6); **estrategia nazionala** (4); **estrategia okerra** (4); **estrategia ona** (4); **estrategia orokor** (4); **estrategia orokorra** (9); **estrategia oso** (5); **estrategia osoa** (4); **estrategia politiko** (15); **estrategia politikoa** (11); **estrategia politikoak** (5); **estrategia politikoaren** (4); **estrategia propioak** (4); **estrategia salatu** (7); **estrategia sindikala** (4); **estrategia zehaztea** (5); **estrategia zehaztea eta** (5); **eta estrategia** (58); **eta estrategia hori** (4); **etaren estrategia** (6); **euren estrategia** (6); **euskal ingurumen estrategia** (4); **ez du estrategia** (5); **gerra estrategia** (20); **gure estrategia** (5); **haren estrategia** (4); **herri estrategia** (5); **ingurumen estrategia** (4); **jarraitu beharreko estrategia** (4); **kontrako estrategia** (5); **lortzeko estrategia** (6); **luzerako estrategia** (4); **nazio estrategia** (11); **nazio estrategia zehaztea** (4); **ohiko estrategia** (7); **oinarritutako estrategia** (4); **oso estrategia** (7); **ppren estrategia** (7); **psoeren estrategia** (4); **urteetako estrategia** (4); **zein estrategia** (5); **zen estrategia** (9); **zer estrategia** (5); **zuen estrategia** (11)

bere estrategiak (5); **bere estrategiari** (5); **estrategiak eta** (4); **estrategiak ez** (11); **estrategiak porrot** (9); **estrategiak porrot egin** (9); **estrategian eta** (4); **estrategiarekin bat** (7); **estrategiarekin bat egiten** (4); **estrategiari aurre** (4); **estrategiari eta** (4); **estrategiari eusten** (6); **estrategiari eutsi** (4); **estrategiarik ez** (4); **estrategiaz aldatzeko** (4); **estrategiei buruzko** (4); **eta estrategiak** (14); **eta estrategiazko** (4); **gerra estrategian** (6); **gerra estrategiari** (4); **inolako estrategiarik** (4)

---

estrategiko 1 *izond* estrategiari dagokiona, estrategiaren aldetik garrantzizkoa dena.

Estrategikoak (hau da, eztabaidaezinak) bilakarazi dituzten proiektu hauen aurrean ezer gutxi daukate egiteko Naturari egin deietan oinarritzen diren jarrerek, ez baita haren salbazioa jokoan dagoena. Berria - Gaiak

Negoziazio estrategia batzuei erantzuteagatik ezin da arriskuan jarri herri honentzat **estrategikoa** den proiektu bat. Berria - Ekonomia

Joera horretan sartzen da enpresen arteko itun **estrategikoen** ugaltzea, teknologia-maila altuko sektoreetan bereziki. Koro Navarro

Elkartean «herri interesen ordez, alderdi izaerako ikuspegi **estrategikoak**» lehenesten direla. Berria - Euskal Herria

Emanaldiak garrantzi **estrategikoa** izango zuela sumaturik, goizago itxi zuen Perrettek liburu-denda, hasieratik han egon ahal izateko. Jon Muñoz

Nekazaritzaren Plan **Estrategikoa** Nafarroan, lehiakortasunaren bila. Berria - Ekonomia

Helena Xurio, Plan **Estrategikoaren** batzorde teknikoko kidea. Herria

Ostegunean, hilaren 18an, datozen urteetarako plangintza **estrategikoa** aurkeztekoak dira Lurgintza Kooperatibako kideak. Berria - Ekonomia

Helburu **estrategikoa** da hori, gure ustez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hori da Kulturaren Euskal Planak ardatz **estrategikoak** garatzeko aurreikusten duen epealdia. Berria - Kultura

Elkartearen apustu **estrategikoa** da, zalantzarik gabe. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egoera orokorrak ez ezik, ezker abertzalearen bilakaera **estrategikoak** ere badu zerikusirik. Berria - Euskal Herria

Garai berriak zetozen, eta garai berriotarako oso zen inportantea, **estrategikoa** esango luke berak, Euskal Filologia. Iñaki Iñurrieta

Bakoitzak bere hautu **estrategikoa** dauka, gu independentistak gara, alderdi sozialista autonomismoaren eta federalismoaren arteko eskema batean egon daiteke, EAJk ez dakigu zehatz-mehatz non kokatzen duen bere burua. Berria - Euskal Herria

Erakutsi da aukeraketa **estrategikoak** ez direla zuzenean sortzen mundu ikuskera batetik edo berez subjektu hiztun jakin bati legozkiokeen interes batzuen gailentasunetik. Xabier Arregi

Material **estrategikoak** eta elikagaiak esportatzea debekatzen zuten legeek zorrotz mugatzen zuten kanpoko merkataritza. Koro Navarro

Frantziaren «premiazko interesak» zehaztean, «hornikuntza **estrategikoak**» eta «aliatuen defentsa» aipatu zituen Chiracek. Berria - Mundua

Iragarkiak ipini genituen fakultateetan eta beste zenbait leku **estrategikotan**. Jon Arretxe

Ez haute mobilizatuko arrantzan habilela, sektore **estrategikoa** diagu. Koldo Izagirre

Kudeaketa maila honetan kokatutako gobernuek, bere hurbiltasunagatik eta kokapen **estrategikoagatik**, eraginkortasun handiagoa baitute garapen iraunkorrarekin bat datozen politikak ezartzera begira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zaindari taldeak antolatzea segadak eragozteko, puntu **estrategikoak** hartzea, beraien egoitza zaintzea. Koldo Biguri

Sindikalgintza abertzaleak uztartu behar ditu elementu taktikoak eta **estrategikoak**. Berria - Euskal Herria

Ezker abertzale zabal eta askotariko bat egiteko oinarri ideologiko eta **estrategikoaren** ikurra adierazi nahi du. Berria - Euskal Herria

1869an, frantsesen ekimenez, Suezeko ubidea zabaldu zelarik, Egipto gune **estrategiko** guztiz garrantzitsua bihurtu zen, eta horren ondorioz etorri zen, 1882an, britainiarren okupazioa. Koro Navarro

Elkartasun **estrategiko** hutsa izan zen hura. Koldo Biguri

Akats **estrategiko** larria litzateke hori. Xabier Kintana

Berrikuntzak eta merkataritza-politika **estrategikoa**. Koro Navarro

Institutu honek oso ondo zehaztuak ditu lan ildo **estrategikoak**. Berria - Harian

Goi bileraren emaitza garrantzitsuena Programa 21 izeneko agiria izan zen, munduan garapen iraunkorra izateko ekintza plan **estrategikoa** alegia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bost puntutik gorako bertsoen konplexutasun **estrategikoaren** adibide ona da halaber bertso hau: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Oraingoz, beste irtenbiderik ez diogu topatu, hondakinen kontua guztiz **estrategikoa** dela jakinda ere. Berria - Gaiak

Jabier Salutregiren ustez ere, 18/98 auziak «planifikazio politiko-**estrategikoa** zuen». Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aliantza estrategikoa (3); **apustu estrategiko** (3); **apustu estrategikoa** (8); **ardatz estrategiko** (3); **ardatz estrategikoa** (5); **ardatz estrategikoak** (6); **aukeraketa estrategikoak** (3); **balio estrategiko** (3); **balio estrategikoa** (3); **erabaki estrategiko** (4); **erabaki estrategikoa** (3); **erabaki estrategikoak** (3); **erabaki estrategikoak hartu** (3); **estrategiko bat** (19); **estrategiko baten** (5); **estrategiko eta** (4); **estrategiko gisa** (3); **estrategiko handia** (3); **estrategiko hori** (3); **estrategiko horren** (3); **estrategikoa aurkeztu** (4); **estrategikoa da** (30); **estrategikoa dela** (18); **estrategikoa delako** (3); **estrategikoa den** (6); **estrategikoa egin** (6); **estrategikoa egitea** (4); **estrategikoa ere** (3); **estrategikoa izan** (4); **estrategikoa izango** (5); **estrategikoa nabarmendu** (3); **estrategikoak dira** (6); **estrategikoak diren** (3); **estrategikoak ere** (3); **estrategikoak eta** (3); **estrategikoak hartu** (3); **estrategikoak iraun** (3); **estrategikoak iraun bitartean** (3); **estrategikoaren arabera** (3); **estrategikoaren helburu** (3); **estrategikotzat jo** (5); **estrategikotzat jotzen** (8); **eta estrategikoa** (6); **eta estrategikoak** (5); **eztabaida estrategikoa** (5); **garrantzi estrategikoa** (6); **gune estrategiko** (3); **gune estrategikoetan** (3); **helburu estrategikoak** (4); **ildo estrategikoa** (3); **ildo estrategikoak** (5); **ildo estrategikoari** (3); **izaera estrategikoa** (3); **leku estrategiko** (3); **leku estrategikoa** (4); **leku estrategikoan** (4); **leku estrategikoetan** (4); **nekazaritzaren plan estrategikoa** (3); **plan estrategiko** (11); **plan estrategiko bat** (3); **plan estrategikoa** (37); **plan estrategikoa aurkeztu** (4); **plan estrategikoak** (16); **plan estrategikoak iraun** (3); **plan estrategikoan** (6); **plan estrategikoaren** (24); **plan estrategikoaren arabera** (3); **plan estrategikoaren helburu** (3); **plangintza estrategiko** (4); **plangintza estrategikoa** (6); **posizio estrategikoa** (3); **proiektu estrategiko** (6); **proiektu estrategikoa** (4); **sektore estrategikoa** (7)

---

estrategikoki *adlag* era estrategikoan.

Estrategikoki dago kokatuta, 196 edo 169 edo dena delako hoteleko sarrera zaintzeko. Ramon Saizarbitoria

Lehen-lehenik, aparatukoak **estrategikoki** txertatu behar ziren Gobernuaren organigraman. Aingeru Epaltza

Erosketa **estrategikoki** ontzat jo den arren, prezioa handiegia dela deritzote askok. Berria - Ekonomia

Errealistagoak jartzea erabaki genuen orduan eta nola guk ogia banatu nahi dugun posta bidez, ogia.com deitzea erabaki genuen, adjektibotik izen arruntenera igaroz eta **estrategikoki** esplizitoegia izan litekeen bidera derrigortuz geure buruak. Hasier Etxeberria

Sindikatu alemaniarrak dinamika horretan eror ez daitezen animatzen ditu ELAk; bestela, **estrategikoki** «galduta» egongo lirateke. Berria - Ekonomia

Denek badakigu ABn zatiketa bat izan zela eta zein izan ziren horren sustraiak, bai taktikoki, bai **estrategikoki**. Berria - Euskal Herria

Alderdi sozialistaren benetako arazoa ez da ez ETA eta ez EAJk esan dezakeena: **estrategikoki** eta instituzionalki Ibarretxek egin duena eta Ibarretxe egiteko prest dagoena da arazoa. Berria - Euskal Herria

Ekonomikoki eta **estrategikoki** duen nagusitasunaz baliatzen da, hartara, herensugea. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta estrategikoki (3)

---

estrategikotasun *iz* estrategikoa denaren nolakotasuna.

Kontraesana dirudi, baina, **estrategikotasunari** neurria hartzeko, hondakinen katalogoa nork kudeatzen duen ikustea besterik ez dago. Berria - Gaiak

Gimenezek sektorearen **«estrategikotasuna** eta garrantzia» azpimarratu ditu. Berria - Euskal Herria

Estrategikotasun hori onartu arren, baina, «proiektua aztertzeko lehen fasean» daude Jaurlaritzan. Berria - Euskal Herria

---

estraterrestre *(corpusean **estraterresta** soilik) iz*

Halaz, arrazoia arazoz betea neukala nihaurk, bidean, Hollywooden ekoitzi film frankotan miretsi **estraterrestra** baten gurutzatzea espero nuen lasaiki, salbatua izateko gisan. Itxaro Borda

Estraterrestrak ere, eztiak maite nituen. Itxaro Borda

Roswellgo **estraterrestraren** ondorengoak urrats bat egin zuen nigana, galdera berdina meleloki errepikatuz. Itxaro Borda

Estraterrestren keinu hiperbolikoen irakurtzen. Itxaro Borda

---

estraterritorial *izond* lurraldeari dagokionaz kanpokoa.

Pasaporte mota bi dira Letonian; errusiarrek **estraterritoriala** daukate. Edorta Jimenez

---

estratifikatu, estratifika(tu), estratifikatzen **1** du *ad* estratuetan jarri.

Leku honetan harkaitza oso ondo **estratifikatua** dago eta ez dugu ulertzen zer gertatu den. Berria - Harian

2 (era burutua izenondo gisa; irud/hed)

Ziinematografiako apailuak joanean doan denbora bat, etengabeko orainaldi batean bezala irristatzen ari garen kronologia bat ez ezik, denbora konplexuago bat ere eskatzen du, denbora **estratifikatu** bat. Josu Zabaleta

---

estratifikazio *iz* estratifikatzea.

Aranaren esanetan, luiziaren gunean arrokaren **estratifikazioa** zuzena zen eta ez dakite zer gertatu ote den. Berria - Harian

Gidari zihoala, morrenak, **estratifi**kazioak eta bestelako formazioak seinalatzen zizkidan. Xabier Olarra

---

estratigrafia *iz* estratuen kokaera.

Aurreko gunean **estratigrafia** nahiko inportantea dago, gutxienez bost metrokoa, baina konpuruaren aldetik ez da hain handia. Berria - Kultura

---

estratigrafiko *izond* estratuena; estratigrafiari dagokiona.

Eremu guztietan maila **estratigrafiko** aberatsak eta era askotariko aztarnak dituela bertatik bertara egiaztatu ahal izan du Eliseo Gil arkeologoak zuzentzen duen taldeak. Berria - Harian

---

estratosfera *iz* Lurraren atmosferako geruza, 10 eta 50 kilometroko altueren artean hedatzen dena.

«Iran izango da **estratosferara** iritsiko den lehen herrialde islamiarra», gogoratu zuen. Berria - Gaiak

Gailu horiek troposferako eta **estratosferako** datuak bilduko dituzte.Beheko geruzak berotu ahala **estratosfera** hoztuz joango litzateke eta ozonoa sortzeko prozesua geldiaraziko luke. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Urruti izeneko batek, esate baterako, baloia hartu eta, Iribarren sakea eginez, baloia **estratosferara** botatzen zigun beti. Joseba Sarrionandia

Ezustean harrapatu nau, eta libidoa zunda globo baten moduan igo zait, braust!, **estratosferaraino**. Patxi Iturritegi

---

estratosferiko 1 *izond* estratosferarena, estratosferari dagokiona.

Beraz, Ebek behar duen guzti-guztia dauka etxe barruan, bidaia **estratosferikoetan** soilik ezagutzen den mikrokosmos toxikoa. Sonia Gonzalez

Bueltatu zeure mundu **estratosferiko** koloretsura. Sonia Gonzalez

2 irud/hed

Udan, bertso-udalekuak antolatzen dira Aubixan, eta nik sekula ezagutu dudan gazte koadrilarik **estratosferikoena** aritzen da begirale lanean: Xabi Paia, Eizagirre ahizpa bikiak, Oihane Perea... Joxerra Garzia

---

estratu *iz* 1 geologian, sedimentuz osaturiko geruza.

Freudek, esate baterako, gogamena aztarnategi arkeologikotzat irudikatzea zuen gogokoen, eta geruzaz geruza antzinako **estratu** lurperatuz betea. Imanol Zurutuza

Ni, Stephenen ondoan eserita, haren begiradari jarraikiz, hantxe hasi nintzen, neure iruditurako, haren begiez ikusten, beheko harri-**estratuen** ezagupen intelektuala alde batera utzi eta begientzako ikusmirari soilik erreparatzen. Xabier Olarra

Bide miragarria zen: gero eta altura handiagora igotzen jarraitu genuen urkila beldurgarriak eginez bihurrikatzen zen bidean gora, **estratu**-zerrendaz osatutako haitzek egindako labar izugarriak hantxe genituela buruz gain. Xabier Olarra

2 irud/hed

Urtaro guztien **estratuak** ageri ziren humusaren geruzetan, norabait jotzen zuen hark guztiak, zerbait zehaztu nahian. Joxan Elosegi

3 gizarte kategoria.

Lantalde kideek pertsonaia bana hartuko dute hirian diren maila edo **estratu** sozialetatik, eta haren aurkezpena egingo diete irakurleei, delako. Koro Navarro

4 ***altu-estratu***

Altu-estratu gotorrak halaber, hedoien eta euriaren batasunaren aiduru zeuden. Itxaro Borda

Beste batzuetan aire ingurukariak hautsitako exilioko trenen leihoetarik mendekatzen ziren **altu-estratuak** zituen pentsaide. Itxaro Borda

5 ***estratu-kumulu*** lodiera uniformeko geruza horizontalek osaturiko hodeia.

Begiak herts eta aldizka kumulu-ninboak zein **estratu-kumuluak** zitzaizkion argitzen, euriaren bidez batasunera edo zeru zohardia lardaskatzen zuten kurloen gidaritzapean bidaia dei. Itxaro Borda

---

estraza *iz* paper mota arrea, lakarra eta lodia, janariak-eta biltzeko erabiltzen dena eskuarki.

"estraza" esaten zaion paper muttur bat hartu, busti hura karamelotan, eta margotzen zituen banan-banan. Pako Aristi

Aldameneko gelatxo batean, leihorik gabea, burdinazko pieza batzuk eta "resma" dozena batzuk, **estraza** paperetan bildurik. Txillardegi

---

estreina *(orobat **estraina** g.er.)* 1 *adlag* lehen aldiz, lehenengoz.

Amerikar bat izan zen, Thomas Hunt Morgan, ozpineko eulia **estreina** altxatu zuena ondoretasuna aztertzeko objektu hauta izatera. Juan Garzia

Oso-osorik jango ditut, buztana **estreina**, kras-kras eginaz. Pako Aristi

-Itxaron -esan dit-, **estreina** nik probatu behar dut, ea ona al dagoen. Pako Aristi

Laster ekiten dio jardunari; liburuaren titulua irakurtzen du **estreina** ebakiera garbiz: [...]. Karlos Linazasoro

Naturaltasunak, **estreina** erakunde "natural", hots, tradizionalak justifikatzeko eta sendotzeko balio bazuen, haiek kuestionatzeko eta Iraultza eragiteko balio izan du berehala. Joxe Azurmendi

Ibn al Khawwamek erabili zuen **estreina** bere baitan gerora Fermaten aieru ospetsua bihurtuko zena: kubo bat ezin da izan bi kuboren batura. Jon Muñoz

Neskaren lepagaineraxe erortzen zitzaion ile kiribilduan kontzentratu nuen **estreina** eskuargiaren fokoa. Anjel Lertxundi

Gizalegezko zerak etorri ziren **estreina**, gaitzari buruzko galdeak eta osatze azkarrerako animoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Garaiak eta zirkunstantziek hala eskatuta, eskuin inkisitorialak garatu du **estreina** *Volksgeist* espainolaren definizioa. Joxe Azurmendi

Garrantzitsua da jakitea **estreina** noiz izan zenuen hilekoa, normalean nolakoa izaten duzun, aurreratu edo atzeratzen zaizun. Luis Elberdin

Une hartan nabarmendu zen, **estreina**, Stephenek irudietarako zuen jaidura eta gaitasua. Xabier Olarra

Oihalak astiro hartu zuen **estreina** su; gero, ehuna barne-bustitzeko erabilia zuten olio urrintsuaren lurrunengatik, gora egin zuen garrak, urdinkara, ebanozko gainestalkietarantz. Juan Garzia

Hasieran ez zuen nahi, aurreko bisitaldiko nire zaputzaldia gogoan, baina, otoika **estreina** eta arrenka gero, lortu dut halako batez Paveseren borondatea beratzea. Anjel Lertxundi

Enteleguaz edo inteligentziaz denaz bezainbatean, **estreina** adimenari gagozkiola, gure herriak pentsalari eta inteligentzia gailen gutxi eman du; baina, alderantziz, bataz besteko jende adimendutsua da euskalduna. Joxe Azurmendi

Orduan entzun ote nituen Rimbauden hitzok **estreina**? Anjel Lertxundi

Hondamendi hori, noski, erabat saihets zitekeen aurretik, baldin eta kasu egin baliote ikusmen-urritzeaz **estraina** kexatu zenean, eta mediku-zuhurtziaz, edo are zuhurtzia arruntez, aztertu izan balitz haren egoera. Xabier Olarra

2 *iz ipar* estreinaldia, inaugurazioa. ik **estrena**.

Larunbat aratsaldean, Urruñan, Posta egoitzan, Jondoni Jakobe beilari bideetaz muntatu erakusketaren **estreina**. Herria

Aitzineko egun horietan egin da egoitza berrituaren **estreina**. Herria

Egoitzaren **estreina** hemendik hiru urteren buruko nunbait han. Herria

Estreina egin dute handizki joanden egunean, zernahi jende gomitaturik. Herria

Euskal erakustokiaren **estreina** ofiziala irail hastapenean izanen da Catherine Tasca ministroa bera etorriko da karia horretara. Herria

Aroa ere alde, ez aparantziarik ere aintzineko egunetan bezen bero, ederki iragan da igandean itsas-hegiko ibilbidearen **estreina**, bi mila lagun partzuer nunbait han. Herria

Estreina hitzaldian, Erramun Bachoc mintzatu da eta argitaratu ditu azken urte hotan Iparraldean euskalgintzari buruz egin diren urratsak. Herria

Gazte kontseiluaren **estreina** bilkura azaro hastapenean iraganen da. Herria

3 ***estreinako*** *(orobat **estreineko** g.er.) izlag* lehenengo.

Estreinako aldia zen Hanna beltzez jantzia nekusana. **Estreinako** aldia nuen halako elurte baten erdian hegaldatzen nintzena. Joxe Austin Arrieta

Estreinako alditan, neure onetik ateratzen ninduen Umbertori erakusten zion jarrerak. Anjel Lertxundi

Ama batentzat ezin dela inola ere xamurra izan bere ume bakarra munduan barrena **estreinako** aldiz bakarrik ibiltzea. Joxe Austin Arrieta

Semeari umetan hainbeste bider esandako "**estreinako** eta azkeneko aldiz" hura. Pako Aristi

Badakizu zer esaten zuen amaginarrebak herrira **estreinako** autoak ekarri zituztenean? Pako Aristi

Txistu sarkor batek oroimenen haria eten eta lokomotora eta bagoiaren arteko lehen talka iragarri zuen, **estreinako** bapore bufada. Josu Landa

Estreinako okada sukaldeko mahai gainera jaurti zuen. Unai Iturriaga

Estreinako zurrutada emandakoan irribarreka begiratu zion Maizari. Migel Angel Mintegi

Zabalik ikusiriko **estreinako** tabernara sartu eta kafe bat eskatu zuen. Migel Angel Mintegi

Zehaztasunik eza baliaturik, gogoan dut islama zer den azaldu niela zortzi urteko ikasleei **estreinako** nire erlijio eskolan. Joxerra Garzia

4 ***estreinakoz*** *adlag* lehenengoz.

Estreinakoz ostegunean entrenatu baziren ere, biak ala biak jokatzeko moduan izango dira. Berria - Kirola

Estreinakoz, aurrez aurre so egin diezaiokegu geure ezjakintasunari. Aurten, **estreinakoz**, Vinsa elkarte publikoak kudeatuko du kanpaina guztia, nahiz eta azken erabakia enpresa sustatzaileen eskuetan egon. Juan Garzia

Hartu duzu bidean gora, Arraiturrera, eta **estreinakoz** egin duzu bidea paradisua erdibitzen duen errekastoari segika. Hasier Etxeberria

Orduan erreparatu zion **estreinakoz** Lucasi. Unai Elorriaga

Hala nola elezaharrezko iker-txosten hura zeinean Wölhler gure aitak lehen sintesi organikoaren berri ematen baitu, edo Sainte-Claire Deville-k aluminio metalikoa **estreinakoz** nola bakartu zen deskribatzen. Juan Garzia

Zer plazer sentitzen den jakin nahi izango dut, lanpernak **estreinakoz** jaten dituenaren berri-poz atzera-aurrera horrekin? Anjel Lertxundi

Duela hiru hilabete inguru ikusi zuen **estreinakoz** Rose. Mirentxu Larrañaga

Bere soak osoki kosk egin zion **estreinakoz** nire begiradaren amuari. Harkaitz Cano

Bueltan da Mariza, Kursaalean **estreinakoz** abestu zuenetik bi urte pasatu ondoren. Berria - Kultura

Madrilgo Burtsaren Etxea 1893garren urtean zabaldu zuten **estreinakoz** eta bere eraikuntzarako bazter guztietatik ekarri zituzten harri eta gailuak. Hasier Etxeberria

Azkue ginekologoak lortu du **estreinakoz** haurrak laborategian egiteko metodo ziurra. Hasier Etxeberria

Ezkonduta generamatzan urteetan **estreinakoz**, Fernandoren zakila lodiegia egiten zitzaidan aho barruan. Jasone Osoro

Aukera ematen zuen, **estreinakoz**, enbrioiaren garapenaren eta organismoaren funtzio nagusien oinarri genetikoak aztertzeko. Juan Garzia

Orduantxe, eta **estreinakoz**, porrotaren zapore garratza sentitu zuen ezpainetan, eta erokeria bat egiteko aukera dantzatu zuen garunetan, konprenitzekoa da. Karlos Linazasoro

Iloba **estreinakoz** maitemindu zenean konturatu zen osaba bien arteko etenaz. Joxerra Garzia

Heldu den denboraldian **estreinakoz**, ACBk Superkopa antolatu du Malagan irailaren 24tik 26ra. Berria - Kirola

Historian **estreinakoz**, gaur egungo bertsolariek, bertsotan jarduteaz gain, beren jardunari buruzko hausnarketan dihardute etengabe. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Entzuleen artean, berriz, euskal intelektualik ospetsuenak han ziren, **estreinakoz**: bertsolaritzari iseka egiten ziotenek, euskal kulturaren berpizkundearen ardatz moduan ikusten zuten orain bat-bateko bertsolaritza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Igeritakoaren atzealdeko korapiloa askatu eta titiak erakutsi zizkidan Margak, **estreinakoz**. Juan Luis Zabala

Gaur egin du huts, **estreinakoz**. Itziar Otegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

azurmendik estreinakoa (3); **azurmendik estreinakoa egingo** (3); **baten estreina** (4); **bere estreinako** (14); **da estreinako** (7); **da estreinako aldia** (3); **da estreinakoz** (5); **den estreinako** (3); **du estreina** (3); **du estreinako** (5); **du estreinakoa** (3); **duen estreinako** (4); **egin zuen estreinakoa** (3); **egin zuten estreinakoa** (3); **erakusketaren estreina** (5); **estreina egin** (4); **estreina egunean** (3); **estreina eta** (4); **estreina ofiziala** (3); **estreinako aldia** (25); **estreinako aldia da** (4); **estreinako aldia zen** (4); **estreinako aldian** (4); **estreinako aldiz** (54); **estreinako aldiz ariko** (3); **estreinako aldiz lehen** (3); **estreinako bikaina** (3); **estreinako bikaina izan** (3); **estreinako diskoa** (6); **estreinako filma** (3); **estreinako lana** (3); **estreinako liburua** (3); **estreinako minutuak** (4); **estreinako minutuak jokatu** (3); **estreinako partida** (33); **estreinako partida izango** (3); **estreinako partidan** (5); **estreinakoa egin** (16); **estreinakoa egin zuen** (8); **estreinakoa egin zuten** (4); **estreinakoa egingo** (12); **estreinakoa egingo du** (9); **estreinakoa izan** (4); **estreinakoa izango** (3); **estreinakoa jokatu** (3); **estreinakoz ariko** (3); **estreinakoz entzun** (3); **estreinakoz eta** (3); **estreinakoz ikusi** (5); **eta estreinako** (6); **eta estreinakoz** (3); **ez da estreinako** (3); **harri baten estreina** (3); **ikastolaren estreina** (3); **jokatu zuen estreinako** (4); **lehen mailan estreinakoz** (3); **ligako estreinako** (4); **mailan estreinakoz** (3); **nuen estreinako** (7); **nuen estreinako aldia** (3); **txapelketako estreinako** (4); **txapelketako estreinako partida** (3); **zen estreinako** (4); **zen estreinakoz** (4); **zion estreinakoz** (3); **ziren estreinakoz** (4); **zuen bere estreinako** (5); **zuen estreina** (3); **zuen estreinako** (18); **zuen estreinako aldiz** (6); **zuen estreinako partida** (4); **zuen estreinakoa** (5); **zuten estreinako** (3); **zuten estreinakoa** (3)

---

estreinaldi *(ETCn **5.199** agerraldi; orobat orobat **estrenaldi** ETCn **130** agerraldi)* **1** *iz* estreinatze aldia edo eguna. ik **inaugurazio**.

Estreinaldian auzapezak egin dituen deklarapenek erakutsi dute argi eta garbi, ttipia izana gatik ikastola horren zutik ezartzeko eman behar izan diren indarrak biziki handiak izan direla. Herria

Londresen, festetan eta **estreinaldietan**, bere burua erakusten (eta nabarmentzen) hasi zen eta, pixkana-pixkana, bere buruargitasun, umore fin eta xelebrekeriei esker, goi-mailako gizartearen kuttun bihurtu zen. Antton Olano

'Fahrenheit 9/11' filmaren **estreinaldia** AEB-etan. Berria - Kultura

Estreinaldia ekainaren 25ean, aratsaldeko 6etan. Herria

Behinola Carignano Antzokian konparsa gisa hartu baitzuten Don Carloserako, familiakoei gutuna idatzi zien **estreinaldira** etor zitezen. Juan Garzia

Urriaren 6 an igande goizean, gela berriaren **estreinaldia**: 9 etan meza elizan, 10.30 etan eskolaren bisita, 11 etan estreinatzea eta benedikatzea, 11.30 etan zintzur bustitzea. Herria

Ortziralean aratsaldeko 6-etan, Donibane Lohizunen Ravel entzuntegian, "Kantuketan" erakusketaren **estreinaldia**. Herria

Jaialdiaren hamargarren ekitaldian, 26 film luze eskainiko dituzte, horietako zazpi **estreinaldiak**. Berria - Kultura

Herritar, auzo-herritar eta inguruetako hautetsi frango ziren bilduak, iragan larunbatean, Arrosako trinketa berriaren **estreinaldirako**. Herria

Jean Jacques Lasserre departamendu buruak moztu du **estreinaldiko** xingola. Herria

Vienako egunkarietan kontzertuak, **estreinaldiak** aletzen nituen, zeintsu interesatuko zitzaizkizun beste pentsamendurik ez nuela. Eduardo Matauko

Estreinaldia eginen da apirilaren 23an. Herria

Bidaxunen, denak mintzo, zeren eta ez zuten **estreinaldia** gibelatu; berantegi jakin baitzen hori. Menane Oxandabaratz

Film honen **estreinaldia** interesgarria izan da guztiz. Josu Zabaleta

Arratsaldean, berriz, azpil-nahaspilen **estreinaldia**, urte luzeetako debekuaren ondoren. Joan Mari Irigoien

Zornotza aretoan izan den **estreinaldiaren** esku-programa. Berria - Kultura

Estreinaldi ofiziala biharamunean, eguerditan. Herria

Zorionak, txotxongiloen munduan **estreinaldi** ederra izan duzu. Berria - Kultura

Estreinaldi atsegingarria zinez, Kotte Ecenarroauzapezak erran duen gisan, bainan holako beste bizitegi ainitzen galdea ere balitake oraino. Herria

Irailaren 24ean lotuko da desafio harrigarri horri, igerilekuaren **estreinaldi** egunean. Herria

Atariko lanean Bernaola zenaren obra baten mundu **estreinaldia** oparitu ziguten: Murtzian estreinatzekoa zen baina, hainbat arazo tarteko izan direla, hemen estreinatu den Fanfarria-Preludioa. Berria - Kultura

Filmaren grabaketan aktoreen arteko harremanak zaintzen ahalegindu dela esan zuen, atzo, Madrilen, Torapia film komikoaren aurre-**estreinaldian**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estreinaldi bat (5); **estreinaldi egunean** (6); **estreinaldi hortan** (3); **estreinaldi ofiziala** (8)

baten estreinaldia (6); **berriaren estreinaldia** (7); **da estreinaldia** (3); **du estreinaldia** (3); **egin zuen estreinaldia** (3); **erakusketaren estreinaldia** (8); **estreinaldia egin** (4); **estreinaldia egingo** (10); **estreinaldia egingo du** (5); **estreinaldia egingo dute** (4); **estreinaldia euskal** (3); **estreinaldia izan** (3); **estreinaldia izango** (7); **estreinaldia izango da** (3); **filmaren estreinaldia** (7); **ren estreinaldia** (3); **zuen estreinaldia** (3); **zuten estreinaldia** (3)

bere estreinaldian (3); **estreinaldiari begira** (3)

---

estreinatu *(ETCn **14.566** agerraldi; orobat orobat **estrenatu** ETCn **356** agerraldi)*, estreina(tu), estreinatzen du **1** *ad* lehen aldiz erabili; inauguratu.

Catherine Tasca ministroak **estreinatu** du astelehenean Baionako Euskal Erakustoki berritua, ekainaren 23 an idekia, 12 urtez hetsirik egon ondoan, itxuraldaturik agertzen dena. Herria

Gure herri eta auzo askotan traje berria **estreinatu** ohi zen. Pello Zabala

Zuetako norbaitek etxe berria eraiki eta oraindik estreinatu ez badu, itzul bedi etxera, bera borrokan hil eta etxea beste norbaitek **estreina** ez dezan. Elizen arteko biblia

Otsailaren 5ean, Madrilgo Price Zirko Handian, "Las golondrinas" drama lirikoa **estreinatu** zen. Askoren artean

Mahler-ek bere Zortzigarren Sinfonia **estreinatu** zuen, orkestra handiei bidea emanez horrela. Pello Salaburu

1895eko otsailaren 14an, Oscar Wildek bere antzerki-lanetan ospetsuena eta biribilena den hau **estreinatu** zuen egunean. Antton Olano

Internet atari berribat **estreinatu** du Euskal Kultur Erakundeak. Herria

Bizitza erretiratua egiteari pixka bat utzi, eta biziberritze sozial eta sexualeko aldi bat **estreinatu** zuen, beldurra eta depresioa gainditu eta bizitzara itzulirik. Xabier Olarra

Handik aste batzuetara "Haizearekin joana" izeneko filma **estreinatu** zuten. Pello Salaburu

Elkarrizketa bat nahi zuen, egunkariak **estreinatu** behar zuen sail berri baterako. Joxerra Garzia

Koaderno berde ilun bat (France, 210 x 297 mm.) **estreinatu** dut kontakizun nagusiari erantsitako iruzkin eta azpikontakizunontzat. Anjel Lertxundi

Tragedia bat idatzi zuen frantsesez, Salome, 1896an Parisen **estreinatua**. Antton Olano

Zuetako norbaitek etxe berria eraiki eta oraindik **estreinatu** ez badu, itzul bedi etxera, bera borrokan hil eta etxea beste norbaitek estreina ez dezan. Elizen arteko biblia

Automobil **estreinatu** berrian nindoan, bada, Donostiatik harantz -Oriotik Zarautzerako bidean doi-, 180ko abiaduran bai. Joan Mari Irigoien

Monika harro zegoela zirudien bere gorputz **estreinatu** berriarekin eta bazekiela inor liluratzeko ez zuela ezer egin beharrik, aski zuela gorputza erakustearekin. Joxean Agirre

Euskal gobernu **estreinatu** berriko lehendakaria da Garaikoetxea. Xabier Mendiguren Elizegi

Estreinatu gabea dirudi hiriak, elur erori berriak ematen duen garbitasunagatik. Harkaitz Cano

Estreinatu gabeak ematen zuten, hainbesterainokoa zuten distira. Anjel Lertxundi

Egun hartan ofizialki **estreinatu** zituen udako janzkiak. Josu Landa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzokian estreinatu (6); **arrakasta handiarekin estreinatu** (5); **atzo estreinatu** (11); **atzo estreinatu zen** (3); **atzo estreinatu zuten** (6); **aurten estreinatu** (3); **azken filma estreinatu** (3); **bat estreinatu** (11); **bat estreinatu zuen** (4); **batekin estreinatu** (3); **berria estreinatu** (12); **berritua estreinatu** (4); **berritua estreinatu dute** (3); **erakustegian estreinatu** (3); **erakustegian estreinatu dute** (3); **ere estreinatu** (4); **estreinatu ahal** (5); **estreinatu ahal izan** (3); **estreinatu aurretik** (5); **estreinatu baitzuen** (3); **estreinatu behar** (8); **estreinatu berri** (14); **estreinatu berri du** (5); **estreinatu berria** (8); **estreinatu berrian** (3); **estreinatu da** (12); **estreinatu den** (4); **estreinatu du** (26); **estreinatu du aurten** (3); **estreinatu duen** (4); **estreinatu dute** (39); **estreinatu dute joanden** (3); **estreinatu eta** (18); **estreinatu ez** (4); **estreinatu gabe** (5); **estreinatu gabea** (3); **estreinatu nahi** (3); **estreinatu ondoren** (7); **estreinatu zen** (62); **estreinatu zenean** (7); **estreinatu zenetik** (8); **estreinatu zituen** (3); **estreinatu zuen** (47); **estreinatu zuenean** (4); **estreinatu zuten** (44); **estreinatu zuten atzo** (3); **eta estreinatu** (4); **euskaraz estreinatu** (5); **euskaraz estreinatu dute** (3); **filma estreinatu** (9); **filma estreinatu eta** (3); **filma euskaraz estreinatu** (3); **garaipen zerrenda estreinatu** (5); **gutxi estreinatu** (3); **handiarekin estreinatu** (5); **hori estreinatu** (3); **iaz estreinatu** (5); **jaialdian estreinatu** (4); **jaialdian estreinatu zuen** (3); **londresen estreinatu** (4); **obra estreinatu** (5); **ofizialki estreinatu** (3); **oraindik estreinatu** (6); **urtean estreinatu** (5); **zerrenda estreinatu** (5); **zerrenda estreinatu du** (4)

---

estreinatzaile *(corpusean **estrenatzale** soilik) iz* estreinatzen duena.

Abraham Olano txirrindularia zen Astigarragako Bereziartua sagardotegiko ohorezko **estrenatzalea**. Herria

---

estreinatze *(orobat **estrenatze**) iz ipar* lehen aldiz erabiltzea; inauguratzea.

Biharamunagoan, astelehenarekin, Atalaiko kaskoan, Miarritzen, bazen han beste **estreinatze** bat eta Bidaxuneko berberak gehienak han ziren. Menane Oxandabaratz

Karia hortarat, Pierre Dartout prefeta, Alain Rousset Akitaniako hautetsien lendakaria, Jean Jacques Lasserre hautetsi nagusien lendakaria hor izanen dira **estrenatze** hortan. Herria

Estreinatze ofiziala ez bada oraino egina ere joanden larunbatean antolatzen zituen lehen partidak barne berri horretan. Herria

Hautetsi eta kargudun frango bildu da **estreinatze** hortarat. Herria

---

estreineko ik **estreina 3**.

---

estreinu *iz* estreinaldia, inaugurazioa.

Melinda and Melinda da New Yorkeko zinemagilearen azken filma eta honen mundu mailako **estreinuarekin** hasiko da zinemaren Donostiako jaialdia irailaren 17an. Berria - Kultura

Harrera ona izan zuen atzo Cannesko Zinemaldian 'Clean' filmak, eta Wong Kar-wairen '2046'-ko bobinak ozta-ozta iritsi ziren **estreinurako**. Berria - Kultura

---

estremismo *iz* muturreko joeren edo ideien zaletasuna.

Al Arabiyak, berriz, dio beraiek **estremismo** guztien aurka daudela eta Al Jazeerari konkurrentzia egiteko jaio direla. Txema Ramirez de la Piscina

Gure baloreak eta bizitzeko era defendatzeko hartua dugun erabakia irmoagoa da beraiek munduan **estremismoa** ezartzeko nahiarekin heriotza eragiteko eta jende errugabea suntsitzeko duten erabakia baino. Berria - Harian

Egoera honek **estremismoak** bultzatu besterik ez luke eragingo. Berria - Mundua

Ez jainko eta ez basapiztia horrek, hirian aurkitzen dizu zoriontasuna; aurkitu ere, bertutearen "erdiko puntuan", hots, hiriaren egonkortasuna ziurtatzen duen neurritasunean ibiliz, **estremismoetatik** urrun. Joxe Azurmendi

Miren Azkaratek, tinko, euskal hizkuntza eta **estremismo** politikoa ez nahasteko eskatu zuen, eta, zoriondu beharreko ahaleginez, Pello Zubiriaren egoera atera zuen argitara. Bernardo Atxaga

---

estremista *izond/iz* ideia edo jokaera muturrekoak dituena.

Hori ez da **estremista** edo muturrekoa izatea. Berria - Kultura

Irakiar inginari bati lepoa moztu diotela jakinarazi dute irakiar **estremista** batzuek. Herria

Badakigu Iranek harreman estuak dauzkala Irakeko xiita **estremista** batzuekin. Berria - Mundua

Kulturen eta erlijioen gatazka nahi duten **estremistak** eta erradikalak hori ustiatzen ari dira. Berria - Mundua

Zapaterok **«estremisten»** eta «erradikalen» koalizioa osatu beharko lukeela ohartarazten hasi dira berriro, indar berriz, PPko burukideak. Berria - Euskal Herria

Agirre **'estremista'** da, eta autonomiari buruz hark dituen usteak higuingarri zaizkio Espainiar pentsaera politikoaren iritzi ezberdinetakoei. Edorta Jimenez

Kolonoak sustatzen zituzten **estremista** juduak joan dira. Berria - Mundua

Zapaterok bere automobilean daraman **estremista** erradikal horietako batek faktura ordainarazi nahi badio, ez diezaiola ordaindu, hori eragozteko han izango baita PP. Berria - Euskal Herria

Joan den azaroaren 2an ustezko **estremista** islamista batek Theo van Gogh filmegilea hil ondoren, ekintza bortitz andana gertatu da Herbeheretan Berria - Mundua

---

estremo 1 *iz* muturra, burua.

Estremotik arineketan abiatu eta, ez beste ekipoko defentsak bakarrik, hainbat jende driblatu behar zen derrigorrez. Joseba Sarrionandia

Muntaia literarioa konbertsio gisako zerbaiten baliabideaz moldatzen da, bi **estremoen** artean mugimendu (historia) itxura sortzeko. Joxe Azurmendi

Rafael berri honentzat, bi puntu kardinal eta bi **estremo** besterik ez dago beti ere Athenaiko eskolan edo espazio hermeneutikoan: hatzarekin Platonek seinalatzen duen zerutarra (Ilustrazioa) ala hemen beheko materia, kaosa, erlatibismoa, historia, anizkortasuna. Joxe Azurmendi

2 *izond* muturrekoa.

Azurza, aztiaren paperean, tesitura **estremoan** aritu zen, grabeetan. Berria - Kultura

3 *iz* hegal-hegalean jokatzen duen futbolaria.

Eta Agustin, gure **estremoa**, haserretu egin zen nirekin: [...]. Joseba Sarrionandia

---

estremofilo *iz* estremoen zalea den pertsona.

NBEren arabera, **estremofiloak** poloetako baldintza zaileko bizimodura egokitutako organismoak hartzen ari dira, gero ikertzeko. Berria - Gaiak

---

estrena *iz ipar* estrenoa, inaugurazioa. ik **estreina**.

Gela berriaren **estrena**. Herria

12.30 etan, «Agnès Souret» erakusketaren **estrena** eta aperitifa, Herriko-Etxean. Herria

Xiberoko sokorri zentroaren **estrena**. Herria

14. erakusketa hunen **estrena** eginen da ekainaren 20 an, ortzirale aratsaldeko 6 etarik goiti. Herria

Roger Gamoy oraiko auzapezak eskertu ditu langile eta laguntza ekarri duten jende guziak eta hurrupaldi batekin bururatu da **estrena** hau. Herria

12 etan: hitzaldia, **estrena** ofiziala. Herria

Larrazken hortan eginen da, nahiz ez den oraino eguna arras finkatua, denek igurikatzen duten estrenaldia, **estrena** egun xoragarri bat dudarik gabe! Herria

Estrena egunerako jaun apezpikua bera etorri zen. Xipri Arbelbide

Halako batean, ez dakit zein **estrenaren** ondotik konjeladorean atxiki xungo xerra mehe haien eguerdiko berotzea erabaki nuen. Itxaro Borda

Urdiñarbeko Müsikaren Egünak, ostegün arratsean hasirik "Kantuketan" Erakustaldiaren **estrenarekin**, igante arrastiritan ürrentü dira ederki, arrakasta handia üken düan kontzertüarekin, hiru milako bat jente bildürik. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
berriaren estrena (6); **erakusketa hunen estrena** (5); **erakusketaren estrena** (3); **estrena eginen** (3); **estrena egunean** (5); **hunen estrena** (8)

---

estrenaldi ik **estreinaldi**.

---

estrenatu ik **estreinatu**.

---

estrenatzale ik **estreinatzaile**.

---

estrenatze ik **estreinatze**.

---

estreno *iz* estreinaldia, inaugurazioa.

Neskaren **estrenoaz** oroitu da berriz ere. Jokin Muñoz

Halako galderak erruz egin dizkigute **estreno** egunetik hona eta liburuarekin pasatu zen bezala, orain ere jende klase zeharo desberdinari gustatzen zaio emanaldia. Joxean Sagaztizabal

---

estreptokoko *iz* katea osatuz agertzen den bakterio biribila.

Estreptokokoek eragindako birikeriak joa hil zen; gaur egun penizilinarekin sendatzen da. Fernando Rey

Bakterio hori **estreptokokoaren** aldaera bat da. Berria - Gaiak

Gaixo guztien laginak ikertu eta denetan **estreptokoko** berezi bat aurkitu genuen. Berria - Gaiak

---

estreptomizina *iz Streptomyces lavendulae* bakteriotik ateratzen den antibiotikoa.

Hil hasierako janari-eskaria bideratu ostaturako, iraileko botikarien kongresurako izena eman, jasotako **estreptomizina**-lagin berriekin frogak burutu. Josu Landa

---

estres **1** *iz* garunaren gehiegizko tentsio egoera.

Aski zirela zentzumen-estimulu zenbait berari oreka galarazteko, hala nola **estresa**, nekea edo barne-tirabirak. Xabier Olarra

Estresa, bizkarrezurreko eta giharretako gainkargak, nekea, buruko arazoak eta bestelakoak izaten dituzte zaintzaileek. Berria - Euskal Herria

Mirakasleek pairatzen dituzten **estresa** eta antsietatea sortzen dituzten egoeren diagnostikoa egiteko beharra. endebaldean bizi garenok gero eta muga gehiago ditugu: isolamendua, **estresa**, inkomunikazioa. Berria - Euskal Herria

Errefuxiatu gunetan dauden 800.000 herritarretatik askok trauma gainditzeko beharra dutela ikusi dute, lorik eza eta **estresa** bezalako gaixotasunak dituztela ziurtatu ondoren.Gure gizartean, bizi-mailaren gorakadak -gastu ahalmenarenak alegia- galera bat eragiten du, sarritan, bizi-kalitatean: **estresa**, lanera joateko bidaia luzeagoak, aisialdia murriztea, etab. Berria - Harian

Ez naiz gustura sentitzen bertoko giroan eta, aspaldiko partez, **estresa** sentitu dut. Jon Arretxe

Lehen ordutik sentitzen zen **estresa**, artegatasuna etxandi zahartu hartan. Iñaki Zabaleta

Waspsen aurka jokatzeak **estresa** ere sortu zidan, baina gauza handia sentitu nuen. Berria - Kirola

Ikasleei nahiz irakasleei irakaskuntzan **estresa** zerk sortzen dien eta nola aurre egin landuko da. Berria - Euskal Herria

Emakumeen ezetzak autoestima zauritu eta **estresa** areagotzen dio. Patxi Iturritegi

Estresak garuneko hormona jakin batzuetan eragiten du, eta janari, azukre, droga eta apustutarako premia handitu egiten dira. Berria - Gaiak

Nekeak, **estresak** eta zahartzeak galarazi egiten dute loaldian azala behar bezala garbitu eta zaharberritzea. Patxi Zubizarreta

Bere erabakiaren **estresak** mendean harturik. Xabier Olarra

Laster, ordea, jasan ezineko **estresarekin** eta zailtasunekin egin zuen topo. Xabier Olarra

Bada margolan apokaliptiko edo "zientzia-fikziozko" sail bat, guztiz aipagarria, hala adierazten diguna, halakoak egiten baititu Francok gogameneko **estresak** edo ezinegonak jotzen duen aldietan. Xabier Olarra

Ez duzu jakingo azken boladan **estresak** jota edo ote zebilen, ezta? -galdetzen dio medikuak. Antton Olano

Magdalenaren bizitza **estresak** jotakoa ikus daitezke han taularatuta. Berria - Kultura

Donald Rumsfeld Defentsa idazkariak adierazi zion Senatuko batzorde bati Pentagonoko abokatuek galdeketetan eta kartzelaldian loa galaraztea, elikaduraren inguruko manipulazioa eta «**estresa** eragiteko ariketak» zilegizko metodoak zirela argi eta garbi adierazi zutela. Berria - Mundua

Atziloketak eragindako **estresak**, eta guardia zibilen kolpeek eta aerosol narritagarriak bihotzekoa eragin zioten. Berria - Mundua

Telebistetako egitarau muntatzaileek ontsa dakite **estresak** gatibatu sozietate "kitzikatu" honetan loa gehiengoaren kezka bilakatua dela. Itxaro Borda

Zaila da hiri handiko kaosa eta **estresa** irudikatzea. Urtzi Urrutikoetxea

Estresari lotutako erantzun psikikoak. Berria - Harian

Gaitza **estresaren** menpe bizi direnek jasaten dute. Berria - Euskal Herria

Estresaren aurkako terapia. Berria - Kirola

Estresik gabe hartuko dugu erronka, eta ahaleginduko gara emaitza ona lortzen. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Erabat soziala da, baztertzeak eragindako **estres** kronikoa. Berria - Euskal Herria

Jotzen zaituztenean, gorputzak endorfina pila askatzen du, **estres** handia dela eta. Berria - Harian

Egunok **estres** handikoak eta zailak izan dira, dudarik gabe. Berria - Harian

Lehen bi-hiru hilabetean kirola egitea ere gomendatzen da, barruko **estresa** askatzeko. Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estres egoeretan, askoren joera ezer ez jatea den bezala, beste askok kontrolik gabe jatea dute larritasuna eta itoaldia gainditzeko modua. Berria - Harian

Saihestu egin behar direla gaixoaren «**estres** edo presio egoerak». Berria - Euskal Herria

Hiruretan lantzen dituzte erreuma eta arnasketa arazoak, **estres** arazoekin batera. Berria - Euskal Herria

Txostenak ondorioztatzen duenez, horixe izan zen heriotzaren «lehendabiziko eta oinarrizko» arrazoia, bigarren mailako arrazoiak izan zirela zehazten badu ere, tartean **estres** faktoreak. Berria - Harian

Aldi hori inoizko **estres** aldirik handienetakoa izan zen Virgilentzat. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zorioneko lan-**estresa** ote? Migel Angel Mintegi

5 irud/hed

Hala, ariketa fisikoak ezartzen duen **estres** termikoaren arabera erregulatzen du txakurrak bero-galera. Irene Aldasoro

Abuztuaren amaieran bota zuen euria lagungarria izan da, **estres** hidrikoa zuten landa batzuen egoera hobetu baitu. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

estres handia (4); **estresa eragiten** (3); **estresa ere** (3); **estresa eta** (3); **estresa irakaskuntzan** (3); **estresak eta** (7); **estresak eta zahartzeak** (3); **estresak jota** (7); **estresari aurre egiteko** (3); **eta estresa** (12); **horrenbesteko estresaren** (3)

---

estresagarri *(orobat **estresgarri**)* *izond* estresa sortzen duena. ik **estresante**.

Egia esan, liburu batean kontraesanak bilatzen aritzea munduko zereginik **estresagarri** eta tristeena iruditzen zait. Markos Zapiain

Hasieran **estresagarria** izan zen dena, baina orain jada esan dezaket lasaitasuna, oreka, aurkitu dudala. Berria - Kirola

Kaleratu zen liburua, azkenik, 2000. urteko urtarrilean; aurkezpenen, elkarrizketen eta irakurketen garaia **estresgarria** izan zen, baina aurki amaitu zen. Iban Zaldua

---

estresante *izond* estresa sortzen duena. ik **estresagarri**.

Manhattan oso **estresantea** aurkitzen dut. Harkaitz Cano

Armstrongen hotel berean egotea, dena dela, **estresante** samarra ere bada, komunikabidez eta zalez inguratuta dagoelako hotel osoa. Berria - Kirola

Lanbide honek, utziz gero, odola eta linfa ere xurrupatzen baitizu, hain da ederra, interesgarri eta **estresantea**. Berria - Kultura

Ama eta aita izatea bezain eder, **estresante** eta interesgarri. Berria - Kultura

---

estresatu, estresa(tu), estresatzen **1** da/du *ad* estresak joa gertatu; estresak jo.

Kalera **estresatzera** datozen urbano desfasatuak bihurtu dira gure baserritar gazteak. Pako Aristi

Astean zehar ez gara **estresatzen**, funtzionarioekin egoera bereziak ez badaude behintzat, baina bisitagatik, bai. Berria - Euskal Herria

Normalean, ni saiatzen naiz aktoreak ez **estresatzen**, ahalik eta lasaien egon eta hoberena eskaini ahal izan diezaioten publikoari. Berria - Kultura

Andonirena erantzukizun handiko lana da, eta ez da harritzekoa **estresatua** ibiltzea. Migel Angel Mintegi

Ematen du oporretan ere **estresaturik** ibili beharra daukatela. Patxi Zubizarreta

Urtean zehar **estresatuta** bizi naiz, urduri eta akituta. Ana Urkiza

Bertsotan hasi, **estresatuta** bukatu. Berria - Harian

- **Estresatuta** dagoelako! -erantzun zion Ronek-. Iñaki Mendiguren

Loa hain bat-batekoa eta sakona izateak pentsarazi zidan zenbaterainoko zailtasunak aurkitzen zituen egunean zehar, eta ea batzuetan ez ote zegoen jasan-ahaleraino **estresatuta**. Xabier Olarra

2 irud/hed

Atmosferan ozono kopuru handia dagoela eta, **estresatu** egiten dira landareak. Berria - Gaiak

Ikusi dutenez, p8 proteinak zelulen hiru geneen erantzuna koordinatzen du, eta zelula **estresatzea**, blokeatzea eta, azkenean, hiltzea eragiten du. Berria - Gaiak

3 (era buruta izenondo gisa)

Gaitz hauek ohikoagoak direlako pertsona urduri eta **estresatuen** artean. Berria - Kirola

---

estresgarri ik **estresagarri**.

---

estria *iz* gainalde bateko ildoxka.

Baina muturrean dituen **estrien** eraginez, kontrakoa gertatzen da: balaren kontaktuarekin, buztina -edo haragia- sarrerakoan lehertzen da, irteera garbi baino garbiago utziz". Patxi Zubizarreta

---

estribera *iz* zaldikoak zelaren aurrealdean daraman tapakia.

Hor ditut orduko zaldi krastura,esproi eta **estriberak**, kabala markatzen ibiltzen genituen burdinak, zaldi elgarretaratzeko baliatzen genituen joareak. Herria

---

estribo *(ETCn **91** agerraldi; orobat **estribu** ETCn **31** agerraldi)* **1** *iz* zelan, oina finkatzeko pieza.

Guti faltan ez ninduen bihotzeko batek bere hartan akabatu: iltzeak, sokak, mosketoiak, **estriboak**... Yosemiteko Great Captain eskalatzeko adina tresneria zegoen han. Aingeru Epaltza

Mikel Strogoffek zaldiari aho-burdina jarri, zelako zingila tenkatu, **estribuen** uhalak aztertu, eta emeki-emeki hasi zitzaion tiraka bridatik. Karlos Zabala

Igo zen berriz **estribo** gainera, eta bi eskuekin estuago helduaz ezpatari, eman zion euskaldunari goitik behera haserre bizian. Patxi Ezkiaga

Zangoa **estriboan** sartu eta keinu egin zidan igotzen laguntzeko. Aingeru Epaltza

Santxo abiatu zitzaion **estriboei** eustera. Patxi Ezkiaga

Kondesa andreak eskua eskaini zion geltokiko buruari eta berak begirunez eskuan muin egin zion, ondotik **estriboetara** ailegatzen lagundu nahi izan zion baina kondesa andreak eskukeinu batez geldiarazi zuen. Fernando Rey

Kapitain Beltza, orduan, **estriboetan** zutitu zen eta, ahots ikaragarriaz, oihu egin zuen. Agustin Otsoa

Han gelditu zen zaldi gainean Don Kijote, **estriboetan** tink eta lantzaren arrimuan, burutapen triste ilunez betea. Patxi Ezkiaga

2 belarriko hezur txikia, estriboren forma duena.

Hiru hezur txikiz osaturiko kate baten bidez konektaturik daude tinpanoa eta leiho obala; mailua, ingudea eta **estribua** deritze hezurtxo horiei (duten formagatik). Irene Aldasoro

Mailua tinpanoari irmo loturik dago, eta **estribua**, berriz, barne-belarriko leiho obalarekin konektatzen da. Irene Aldasoro

---

estribor ik **istribor**.

---

estribu ik **estribo**.

---

estridente *izond* hotsez eta kidekoez mintzatuz, karrankaria, zorrotza dena.

Zein leku dauka gure munduan hankak bihurritu eta besoak altxarazten dituen musika **estridente** baten inguruko dibertsioak? Pako Aristi

---

estridentzia **1** *iz* gauza estridentea.

Garai guztietako musikak mugimendu nimiñoez eraldatzen zituen zuzendari gizonak, keinu **estridentziarik** gabe. Berria - Kultura

Estridentziarik gabeko orekaren jabe, bibratoa bezalako errekurtso teknikoak, kontrolpean dagoen sonoritate atseginaren mesedetan erabili zituen. Berria - Kultura

2 irud/hed

Gustavo Dessal-en *Operación Afrodita y otros relatos* narrazio laburren bildumak ez du **estridentziarik**. Berria - Kultura

---

estriknina *iz Strychnos nux-vomica*-tik eta beste landare batzuetatik ateratzen den alkaloide pozointsua.

Dioxina zianuroa eta **estriknina** baino askoz ere toxikoagoa da. Berria - Mundua

Zenbait esperimentuk iradokitzen dute arratoiek bizkorrago ikasten dutela eginkizun sinpleak burutzen substantzia kimiko batzuk hartuta -horien artean, **estriknina**, nikotina eta anfetamina-. Irene Aldasoro

"Materiala" deitzen diogu lainezaz, badakigularik ere lautik hirutan **estrikninaz** gozatutako placebo ideal bat besterik ez dela. Iñaki Segurola

Estriknina hidrokloruroa -gai kimiko garratz bat- ia beste edozein substantzia baino errazagoa da dastatzen. Irene Aldasoro

Eskuak astiro eta zehaztasun handiz lehortu ondoren, **estriknina**-pilulen kutxa txiki bat atera zuen txalekoaren goialdeko poltsikotik, pilula bat irentsi eta halako inurridura bat sentitu zuen zainetan, ohiko inurridura. Lopez de Arana

---

estrikto *izond* hertsia, zurruna.

Bigarren aroa (moralik egotearen lehenengoa, zentzu **estriktoan**), Estatuarekin hasten da. Joxe Azurmendi

Zientzia naturalen (eta antropologia biologistaren) tenoreko goraldiaren arabera, herri gogoa modu naturalista **estriktoan**, historiarik gabe, definitzen da. Joxe Azurmendi

Historia egiaz zientzia **estrikto** bihurtzea. Joxe Azurmendi

estriktoki *adlag* era estriktoan.

Testua, editaturik dagoen horretan (OC, IX, 247-313), ezin da **estriktoki** konferentziarena suposatu. Joxe Azurmendi

Egia da, gure mintzamoldea askotan ez dela izaten behar bezain doia puntuotan, eta arrazista legez madarikatua dagoen bat baino gehiago, arraza kontzeptuaren erabilera ez oso elegantea egina dukeen arren, **estriktoki** ez arrazista eta ezta arrazialista ere dela beharbada. Joxe Azurmendi

Estriktoki edo sinpleki ongi. Joxe Azurmendi

Indargintzaren inguruan bezala da abortoarekin, drogarekin, eta asaldura soziala probokatzen duten beste arazo askorekin: "dogmatismo etiko eta juridikoz", "logika **estriktoki** binario" sinplez erreakzionatzen du gizarteak horien aurrean, ziurtasun galdua azkar berreskuratzeko. Joxe Azurmendi

---

estrinseko ik **estrintseko**.

---

estrintseko *(ETCn **52** agerraldi; orobat **estrinseko** ETCn **15** agerraldi) izond* kanpokoa, berezko naturari ez dagokiona.

Adulterioaren malezia, agian, libidotik datorke; zailtasun gaindiezinekin topo egin duzu, izan ere, nabarmenki gaitza deritzozun egintza horren maleziaren arrazoi **estrintsekoa** aurkitu nahian. Imanol Unzurrunzaga

Hauek kontraesan **estrintsekoak** dira, berriro daramatenak forma diskurtsibo ezberdinen arteko kontrajartzera. Xabier Arregi

Onartu behar al da, azkenik, enuntziatuak ezin duela berezko izaera izan eta ezin zaiola definizio egokia eman, hizkuntzaren azterketa guztietarako materia **estrintsekoa** den neurrian, beraren bidez eurei dagozkien objektua zehazten dutelarik? Xabier Arregi

Intrintsekoak erraten dut, **estrintsekoa** dena baztertzeko, hots, ideiaren eta honen objektuaren arteko egokitasuna izendatzeko. Piarres Xarriton

Instantzia honen azterketak erakutsi behar du diskurtsoak nahiarekin duen harremana, beretaz jabetzeko prozesua eta jardute ez-diskurtsiboen artean berak jokatzen duen papera ez direla **estrintsekoak** diskurtsoaren batasunarekiko, bere ezaugarritzearekiko eta bera eratzeko legeekiko. Xabier Arregi

---

estriptilari *iz* jendaurrean ikuskizun gisa jantziak astiro kentzen dituen pertsona.

Melodia bat marmarrean abestuz, jaka askatu, besaburuen mugimenduez soinetik irristatzen utzi, eta mahuka batetik heldurik airean itzulikatu ondoren, bere oinetara bota nuen, **estriptilari** baten mugimenduak ihakindatuz. Ramon Saizarbitoria

---

estrobo *(orobat **estrapu** g.er.) iz* arrauna toletari lotzeko erabiltzen den sokazko eraztun modukoa. Arrauna toletari lotzeko erabiltzen den sokazko eraztun modukoa.

Estroboak, bai, izan ere, garbi zagon nork eginen duen arraunean. Koldo Izagirre

Hondarribiak, Ur Kirolak-ek, Oriok, Castrok eta bi galiziarrek Cabo da Cruz eta Tiranek Lituanian eginiko arraunak dituzte tolete eta **estrapuen** artean. Ipurdiko zintzurra estutu eta jadanik zazpi arroa pisatzen duen adarra behar adina sakonduz **estroboari** intziri sanoa eragiteko gauza izatea. Berria - Kirola

-Egunen batean hara joan nendin -esan zuen, **estroboari** kea zeriola-. Edorta Jimenez

Lituanian eginiko arraunak dituzte tolete eta **estrapuen** artean. Berria - Kirola

---

estroboskopiko *izond* irudipenezko mugimentu optikoa lortzen duena.

Kamera **estroboskopiko** batekin dago filmatuta, eta dantzarien irudiak, beren mugimenduen mamuak bailiran, atzerantz hedatzen dira, hegalak astinduz bezala. Oskar Arana

Argi **estroboskopikoek**, kristaltxoez osatutako sabaiko bola handiak, Bee Gees-en eta Village People-ren kantek, horrek guztiak ez gintuen lekuaren iluntasunak bezainbeste aztoratu. Iban Zaldua

Une batez, lankideak zalantza keinua egin du ilunpe **estroboskopikoan**. Patxi Iturritegi

---

estrofa *iz* poesian, neurri eta errima jakin batera egokitzen den lerro multzoa.

Estrofa hura kantatu zuen, boza eztarrian hausten zitzaiola, eta ezin izan zuen handik aitzina egin. Joan Mari Irigoien

Lauaxetaren *Lili-negarra* poemaren **estrofak**, berriz, Edorta Jimenez idazleak errezitatu ditu. Berria - Kultura

Sarri Sarri abestiaren sorlekuetako bat Martuteneko kartzela bera da: artean preso zegoela idatzi zituen Josu Landak **estrofetako** batzuk. Berria - Harian

Baina tangoak badio, esaten zen Argentinako herri minuskulo horretan, egia izango da **estrofaren** bat. Unai Elorriaga

Lehenik bukaera pentsatzen dutela, eta handik abiaturik gorpuzten **estrofa**. Andoni Egaña

Bederatzi errimako **estrofak**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Poema haien letrak eta **estrofak** harri eta horma batzuk bezalakoak ziren, etxetxo bat eraikiz joan zirenak, non, finean, gure gogo-arimek ostatu hartu baitzuten. Joan Mari Irigoien

Beste ahapaldi pare batean jarraitzen du ideia bera lantzen, hots, bere oroitzapenen eta errealitatearen arteko kontrastea, edonork hauteman ahal izan duen sentipena, eta sententzia gisako batekin biribiltzen du atal hori azken **estrofan**: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Bertsolarien **estrofa**-moldeei buruz ere gauza jakingarriak esan zituen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ordena ezberdina da: kantu batean lehenengo **estrofa** ezinbestekoa da eta poesian ia kontrakoa gertatzen da. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **lehen estrofan** (3)

---

estrogeno *iz* eskuarki obarioak sorten duen hormona, emakumezkoen sexu ezaugarri sekundarioen garapena eragiten duena.

Umetokiko paretak odolez betetze hori hormonen ondorioz gertatzen da, batez ere **estrogenoen** ondorioz. Luis Elberdin

Gonada sexualek -obarioak eta testikuluak- eta horiek sortzen dituzten hormonek -**estrogenoak** eta testosterona- odola, bihotza eta burmuina asaldatzen dizkigute. Luis Elberdin

Medikuek azaldu zutenez, **estrogenoak** hartzea lagungarri gerta dakieke neskei, gihar-minak kendu eta lunbalgia minik ez izateko. Berria - Euskal Herria

Munduko kirol agintariek urtarrilean berraztertuko dute debekatutako gaien zerrenda, eta orduan sartuko dute **estrogenoa** zerrenda beltzean. Berria - Euskal Herria

Datorren urtetik aurrera **estrogenoz** egindako antisorgailuek positibo emango dute emakumezko kirolariei egingo dizkieten dopinaren kontrako kontroletan. Berria - Euskal Herria

Hori, baina, **estrogeno** positiboekin lotutako minbiziaren kasuan soilik gertatzen dela nabarmendu dute adituek. Berria - Gaiak

Aspirina hartzen duten emakumeek **estrogeno** gutxiago izan ohi dituzte bularretan. Berria - Gaiak

Sojaren susbtantzia kimiko batek **estrogeno** hormonen moduko eragina izaten du gorputzean zientzialari horien esanetan. Berria - Gaiak

---

estrogenodun *izong* estrogenoa duena.

Antisorgailu **estrogenodunek** positibo emango dute dopin kontroletan. Berria - Euskal Herria

---

estropada 1 *iz* ontzien, eskuarki traineruen, arteko norgehiagoketa.

Lehenik **estropadak**, gero kinto bazkaria eta arratsaldean partida Realakin. Pello Salaburu

Duela hamar urte sortu ziren Donibane Lohizune eta Ziburuko **estropadak**. Herria

Estropadak ikusi genituen eta giro oso ederra zegoen Parte Zaharrean. Berria - Euskal Herria

Oriotarrek irabazi zuten **estropada** eta zarauztarrak, laugarren zetozenak, bigarren sartu ziren. Xabier Etxabe

Estropadak ordezko arraunlariekin egin baditu ere. Berria - Kirola

Estropadak ere egin dira Ur-Joko-ri esker. Herria

Kosta egin zitzaion **estropadako** burua hartzea, Castrok hasierako txanpa bikaina egin baitzuen. Berria - Kirola

Donostian, **estropaden** bigarren igandean, euskal presoen aldeko manifestazioa egin ohi da, urtero. Berria - Euskal Herria

Aizkoran edo korrika, **estropadetan** nahiz karga-jasotzen, berdin zitzaion. Xabier Etxabe

Ikuspegi horri lotutako erretorikak erabat zabaldu du lasterketa lehiakorraren metafora, non enpresak eta herrialdeak elkarren artean lehian aritzen diren, bakoitza bere kaletik, **estropadetan** ari balira bezala. Iñaki Heras

Carril ezizena zen, **estropadetako** patroi entzutetsu batekin hark zuen antzagatik ipinia, hain segur. Edorta Jimenez

Oraintxe jakin-minaren piper poxi bat sartu dizuet: Zer dira ilargiaren kale horiek? Herriko kaleen antzekoak, edo **estropadetakoen** kale ziabogadun horien parekoak...? Pello Zabala

Federazio Ligan A eta B mailako **estropada** bana jokatuko da. Berria - Kirola

Gaurko Nojako **estropada** erabakigarria izango da. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estropada polita jokatu zuten, lehia bizikoa. Berria - Kultura

Isuntzak beste itxura bat eman zuen, eta **estropada** ona egin zuen herritarren aurrean. Berria - Kirola

Astillero kenduta, beste klub guztiek etxean **estropada** kaskarrak egin dituztelako. Berria - Kirola

Zokoko besten karietarat, **estropada** berezi batzu muntatu dira arrakasta pollita ukan dutenak. Herria

Bertso ikuskizun bitxia eta **estropada** bizia egin zuten Kilometroak 2004-ren aterpean. Berria - Kultura

Bertso ikuskizun bitxia eta **estropada** bizia egin zuten Kilometroak 2004-ren aterpean. Berria - Kultura

Gipuzkoan, **estropada** nagusien sasoin betea dute. Herria

Bi hilabete baino gehiagoko lehia bizia, hamalau **estropada** ikusgarri, eta azken eguna arte itxaron beharko dugu aurtengo Traineruen Kluben Elkarteko (TKE) Liga nork irabaziko duen jakiteko. Berria - Kirola

Lehen **estropada** puntuagarria, berriz, Santurtzin jokatuko da, hilaren 11an. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kaleak gainezka zeuden **estropada** eguna zelako eta betiko aitzakia eman dute gertatu zena zuritzeko, guztia hitz eginda zegoenean **Estropada** egunetan, igandeetan, Alderdi Ederren jartzen zituzten bozgorailuetako musika folk hura. Berria - Euskal Herria

Igandean bigarren kalea izango denetik joan eta hirugarrenetik etorriko dira betiko **estropada** eremuan. Berria - Kirola

Gutxi balitz ere, **estropada** eremuko errekorra hautsi zuen. Berria - Kirola

Jexux jaio berria zela, zarauztarrek Donostian inoiz egin duten **estropada** saiorik onena burutu zuten. Xabier Etxabe

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sailkatze **estropada** gauza bat da eta Kontxako Bandera bestea. Berria - Kirola

Sailkapen **estropada** oso arriskutsua izango da, ez baitago huts bat bera ere egiterik. Berria - Kirola

Volvo Ocean Race bela **estropada** ospetsuan ari da, Espainiako 'Movistar' ontzian. Berria - Kirola

Aldameneko paretan erregea protagonista zuten hainbat argazki zeuden: Antzokiaren inaugurazioa, belaontzi-**estropada** bateko garaikurra jasotzen, hileta-ospakizunak herriko elizan. Josu Landa

Espaloiaren bestaldetik, ibaia zihoan, zabal eta sakon alde hartan, non batel-**estropadak** egiten baitziren udan, inguruetako auzoen gozagarri. Juan Kruz Igerabide

Aurten, bi ez, traineru **estropada** gehiago egingo dira, ziur. Berria - Kirola

Jolas moduko zerbait antolatu nahi dut datorren hilabetean izango diren trainerila **estropaden** inguruan. Josu Landa

Ez da puntuagarria izango, ezta igandean Getxon jokatuko den Telefonica **estropada** ere. Berria - Kirola

Larunbatean Orioko Txanpa **Estropada** jokatuko da. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a mailako estropada (9); **a mailako estropadetan** (3); **atzoko estropada** (3); **azken estropada** (7); **b mailako estropada** (4); **baina estropadaren** (3); **bere estropada** (4); **beste bi estropada** (9); **beste estropada** (12); **beste estropada bat** (11); **bi estropada** (30); **bi estropada jokatuko** (3); **bi estropada puntuagarri** (3); **bi estropada puntuagarriak** (4); **bi estropadak** (4); **bi estropadetan** (6); **bigarren estropada** (3); **bigarren estropada puntuagarria** (3); **bost estropada** (3); **da estropada** (7); **den estropada** (8); **den estropadak** (3); **du estropada** (4); **dute estropada** (4); **estropada bana** (3); **estropada bat** (22); **estropada bat jokatuko** (6); **estropada batzuetan** (4); **estropada egin** (3); **estropada egingo** (4); **estropada egunetan** (3); **estropada ere** (6); **estropada ere jokatuko** (3); **estropada eremu** (3); **estropada eremua** (4); **estropada eremuan** (3); **estropada eremuko** (3); **estropada eta** (8); **estropada eta b** (3); **estropada gaur** (3); **estropada gutxi** (3); **estropada guztiak** (4); **estropada guztian** (4); **estropada guztietan** (5); **estropada hasi** (6); **estropada hasi aurretik** (4); **estropada hau** (5); **estropada ikusgarri** (3); **estropada irabazi** (8); **estropada izango** (4); **estropada jokatu** (7); **estropada jokatuko** (18); **estropada jokatuko da** (11); **estropada jokatuko dira** (5); **estropada ona** (4); **estropada ona egin** (4); **estropada oso** (3); **estropada puntuagarri** (7); **estropada puntuagarria** (15); **estropada puntuagarria izango** (3); **estropada puntuagarriak** (6); **estropada puntuagarriak jokatuko** (4); **estropada puntuagarririk** (3); **estropada puntuagarririk izango** (3); **estropada txarra** (3); **estropadak direla** (3); **estropadak direla eta** (3); **estropadak jokatu** (4); **estropadan aritu** (3); **estropadan izan** (3); **estropadaren ondoren** (7); **estropaden bigarren** (5); **estropaden bigarren igandean** (4); **estropaden ondoren** (3); **eta estropada** (12); **eta estropadak** (6); **eta sailkapen estropadan** (3); **eta ziburuko estropadak** (6); **hamalau estropada** (7); **hamalau estropada puntuagarri** (3); **hamargarren estropada** (5); **hamargarren estropada puntuagarria** (4); **hiru estropada** (5); **hurrengo estropada** (3); **jokatuko da estropada** (3); **jokatuko den estropada** (5); **jokatutako estropadetan** (3); **kontxako estropadak** (3); **kontxako estropadan** (9); **lau estropada** (5); **lehen bi estropada** (4); **lehen estropada** (8); **mailako estropada** (13); **mailako estropadetan** (3); **mundakako estropada** (3); **nojako estropadan** (3); **ocean race estropadan** (3); **orioko estropada** (4); **orioko txanpa estropada** (6); **pasaiako estropada** (3); **race estropadan** (3); **sailkapen estropada** (13); **sailkapen estropadan** (17); **sailkatze estropada** (4); **sailkatze estropadan** (4); **sei estropada** (3); **txanpa estropada** (10); **zen estropada** (4); **ziburuko estropadak** (8); **zuen estropada** (5); **zuten estropada** (5)

---

estropajo *(orobat **estropaju**) iz* garbitzeko erabiltzen den espartzu zatia. ik**espartzu**.

Loak hartu zuen orduan Matias, **estropajuak** hartzen diren jarrera berberarekin. Unai Elorriaga

Gominola asko jaten direnean, estrpajotu egiten da ahoa, eta txokolatea da **estropajoen** leuntzailerik onena. Unai Elorriaga

---

estropajotu, estropajo(tu), estropajotzen da *ad* estropajoa bezalakoa bihurtu.

Izan ere, gominola asko jaten direnean, **estropajotu** egiten da ahoa. Unai Elorriaga

---

estropaju ik **estropajo**.

---

estropeatu, estropea(tu), estropeatzen du *ad* matxuratu, hondatu.

Zerra eskuratu zuenean, Basajaun etorri da ikustera, eta lortu duela jabetu denean, zerra izurratzeko zer asmatuko eta, zerraren hortz bat alde batera okertu zion eta bestea beste aldera, erabat **estropeatu** ziolakoan, baina entrama galanta eman zion eta, indarrez eta abilidadez, trontza asmarazi horrela. Pello Zabala

---

estropezu *(orobat **estrapozo** g.er., **estrapozu** g.er., **estropozo** g.er., **estropozu** g.er., eta **estroputz** g.er. eta **eztropezu** g.er.)* **1** *iz* oinarekin nahi gabe zerbait jotzea eta ondorioz oreka galtzea.

Hemen **estropezu** eta hor behaztopa zebilen, eta Lacaille begien aurretik galdu zuen Vauvilliers kalean. Karlos Zabala

Eskubaloia: Harri berean **estropezu**. Berria - Kirola

2 (izenondoekin)

Estropezu itzela. Berria - Kirola

Gero esango dugu, begira, hirugarren itzulian zerbait gertatu zela, han parean, ondoez txikiren bat, gorroto gorde bat, **estropezu** arin bat, puru erredura bat, begirada gaizto bat. Karlos Linazasoro

3 ***estropezu egin*** oinarekin nahi gabe zerbait jo, oreka galduz.

Bere kaparen barrenak hanka azpian katigatu, eta **estropezu egin** zuen. Anton Garikano

Zazpigarren edo zortzigarren mailan, **estropezu egin** zuen, eta eskua luzatu nion aurreraka eroriko zelakoan; baina ukatu egin zuen nire laguntza, eta orekari eutsi zion. Bernardo Atxaga

Ezetz eta ezetz, ez zuela harri berean bi aldiz **estropezu egingo**! Joan Mari Irigoien

Gizakia da bi aldiz harri berean **estropezu egiten** duen bakarra, dio atsotitz ezagunak. Berria - Kirola

Hara hurbiltzen ari zirela, harri batean **estropezu egin** zuen kotxeak, gurpil bat askatu, kutxa makurtu eta lurrera joan zen. Koro Navarro

Zutitzean, zangan **estropezu egin** zuen eta, oinetara begiratzean, harri artean bala bat topatu zuen. Joseba Sarrionandia

San Lazaro gurutzea dagoen lekuan bertan, zaldiak **estropezu egin** eta zangozarrek iheslaria harrapatu zuten. Martin Anso

Guardia zibilak agertu zirenean, frontoiko atakatik irten nintzen, baina jendea makalegi ibili zen, elkarrekin **estropezu eginez**. Juan Kruz Igerabide

Semaforoan taxi bat geldirik ikustean korrika hasi naiz, hau harrapatu nahian, eta **estropezu egin** dut elurrak erdi estaliriko burdina puska batekin. Harkaitz Cano

Halatan, behin, halako pentsakizunetan doala, emakume poltsadun batekin **estropezu egin**, eta han joango dira lurrera biak. Iñaki Iñurrieta

Korridorearen erdialdera, lurrean zegoen zerbaitekin **estropezu egin** eta buruz aurrera erori zen. Iñaki Mendiguren

Kontrolatu azkarrenen ibilera, **estropezu eginda** muturrez aurrera eror ez daitezen. Xabier Mendiguren Elizegi

Estropezu egin eta gelditu egin zen, harrizko hormari helduta. Iñaki Mendiguren

Arin ibili zen Harry, tarteka-marteka **estropezu eginez** lurzoru malkartsu hartan, makila magikoa beti aurrean zuela. Iñaki Mendiguren

Ilunpetan joan nintzen, hanka-punttetan, aitonaren gelako ateraino, altzarien kontra **estropezu eginez**. Koro Navarro

Patioa zeharkatzen ari zela, ia hautsi zuen lepoa oilo galdu batekin **estropezu eginda**. Iñaki Mendiguren

Zaldia gainera eroria zitzaion **estropezu eginda**, eta pankreako sasi-kiste izugarri bat garatu zitzaion. Xabier Olarra

Ordubete egongo da zurekin, baina **estropezu egiten** baduzu, bertan behera utziko zaitu. Elizen arteko biblia

Maite dutenengan ditu Jaunak jarrita begiak; bera da babesle ahaltsu, euskarri sendo, sargorian gordeleku, eguerdiko eguzki-galdatan gerizpe, **estropezu egiten** duenaren zaintzaile, erortzen denaren laguntzaile. Elizen arteko biblia

Estropezu egiten badu ere, ez da erortzen, eskutik heltzen baitio Jaunak. Elizen arteko biblia

Estropezu egin zuen atzeraka eta farola jo zuen. Iñaki Mendiguren

Besoetan eramango zaituzte, harriekin **estropezu egin** ez dezazun.

Ez dira nekatzen, ez **estropezu egiten**. Elizen arteko biblia

Egunez dabilenak ez du **estropezu egiten**, eguzkiak argitzen baitio bidea. Elizen arteko biblia

Etxebizitzako hiruzpalau ateak ireki zituen ahal bezain gozo, oin puntetan ibiliz, egongela zeharkatuz, besoak zabal, altzariekin **estropezu** ez **egiteko**. Karlos Zabala

Batek baino gehiagok **egin** du **estropezu** harekin. Berria - Harian

Baina ez da ahaztu behar zubiarekin **egin** nuela **estropezu**. Harkaitz Cano

Bai baitira gizon batzuk bizitzarako ezin hobeto prestatuak daudenak, buru-argiak, kementsuak, indartsuak direnak, eta, hala ere, denean gelditu eta **estropezu** besterik ez dute **egiten**. Koro Navarro

4 (irud/hed)

Gogoak **estropezu egiten** du zurrunbiloan, eta obsesioan erortzen da. Bernardo Atxaga

Hirugarren hiruhilekoan **estropezu egin** du Euroguneko hazkundeak. Berria - Ekonomia

Itzul zaitez, Israel, zeure Jainko Jaunarengana, bekatuan **estropezu egin** baituzu. Elizen arteko biblia

Estropezu egin du herriko plazan leialtasunak, zuzentasunak han sartzerik ez. Elizen arteko biblia

Nekien bakarra zen hura artelana zela, hunkitzen ari nintzelako eta nire zentzumenek ez zutelako **estropezu egiten** artelan haren elementu batekin ere. Berria - Kultura

5 ***estropezu eginarazi***

Tony bertan eseri baino lehen, barandak laxatzen zituzten, eta bizkarrez erortzen zen; boten sokekin **estropezu eginarazten** zioten, eta ahateekin azpitratuan ibiltzen ziren, haren ontzia urpera zezaten. Julen Gabiria

Eramaten badituzu, zeu borrokatu eta ahalegindu arren, Jainkoak **estropezu eginaraziko** dizu etsaien aurrean; lagun baitezake Jainkoak, baina hondatu ere bai. Elizen arteko biblia

Agian jatorrak ziren -gaiztoak izateko gai bolada batean, gehiago ez-, baina estutasuna zaldi gainean lauhazka agertzen zenean, aise eta agudo elkartzen ziren hari **estropezu eginarazteko**. Anton Garikano

6 ***estropezu eragin***

Zintzoari, zuzentasunetik aldendu eta bidegabekeria egiten badu, **estropezu eragingo** diot eta hil egingo da. Elizen arteko biblia

Gorde nazazu, Jauna, gaizkileengandik, zaindu indarzaleengandik, nondik **estropezu eragingo** baitabilzkit. Elizen arteko biblia

Ernest Lluch zuen izena azkenekoz **estropezu eragin** didan harriak. Joxerra Garzia

Hortzak karraskaz eta ezpainak more harkaitz piratareen gainean kiskalmenak hartzen egon arren, **estropezu** nori **eraginen** bultzaka, halatsu beti, neuk ezkutatutako ogitartekoen bila. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batean estropezu (5); **batean estropezu egin** (3); **batekin estropezu** (7); **batekin estropezu egin** (4); **berean estropezu** (4); **berean estropezu egiten** (3); **berriro estropezu**

(4); **du estropezu** (5); **estropezu egin** (83); **estropezu egin du** (3); **estropezu egin eta** (24); **estropezu egin ez** (5); **estropezu egin zuen** (29); **estropezu eginda** (8); **estropezu eginez** (18); **estropezu egingo** (6); **estropezu egitea** (6); **estropezu egiteko** (3); **estropezu egiten** (33); **estropezu egiten du** (4); **estropezu eragingo** (3); **estropezu ez** (5); **estropezu ez egiteko** (5); **estropozo egin** (7); **eta estropezu** (15); **eta estropezu egin** (9); **eta estropezu eginez** (3); **harri berean estropezu** (4); **harriekin estropezu** (3); **harriekin estropezu egin** (3); **zuen estropezu** (4)

---

estropezuka *(orobat **estrapozuka** g.er., **estropozoka** g.er., **estropozuka** g.er. eta **eztropezuka** g.er.)* **1** *adlag* estropezu eginez.

Crabbe **estropezuka** abiatu zen aurrera, bere beso luzeak luzatuta, zonbi bat bezala. ohiko lurrin itogarriak eztul eginarazi zion Harryri, hango aulki eta mahai artean **estropezuka** aurrera joan zenean. Iñaki Mendiguren

Lasterka abiatu nintzen, itsu; lurrera eroria zen norbaiten bizkarrean ipini nuen hanka, eta **estropezuka** jarraitu nuen, baina ez nintzen jausi. Juan Kruz Igerabide

Jaiki, haztamuka galtzazpiak bilatu, eta haiek eskuan hartuta, haztamuka berriz ere eta bidean aurkitzen nuen guztiarekin **estropezuka**, ate aldera egin nuen lasterka. Inazio Mujika Iraola

Bizirik geratu diren apurrak, eta ez dira asko orain, itzuli egin dira, **estropezuka** egin dute atzerantz. Mirentxu Larrañaga

Memok **estropezuka** egin zuen aurrera jauregiko ateraino. Fernando Rey

Azken pixa-ttanttak astindutakoan, atzera berriz egin dute taberna barrura, galtzontziloak orkatiletan eta **estropezuka**. Jokin Muñoz

Animalia jaiki zen, eta balantzaka, itsua balitz bezala **estropezuka**, hankak elbarriek ohi dituzten bezala arrastaka eramanez, hormaren kontra orban zuri bat eratzen zuen zapia zegoen lekuraino joan zen. Josu Zabaleta

Nahikoa egin zutenean, ihes egiten utzi ziguten, jauzika eta **estropezuka**. Juan Kruz Igerabide

Harry itsuka joan zen Ronen atzetik argi hartarantz, zabuka eta **estropezuka**, eta berehala argiune batera irten ziren. Iñaki Mendiguren

Skinnyk atzetik segitu zion, **estropezuka**, bidezidor meharrean zehar, zuhaixken artetik. Lopez de Arana

Apaiz eta profetak ere **estropezuka** dabiltza ardoaren eraginez, bidetik oker pattarraren eraginez. Elizen arteko biblia

Astiro eta nekez, katuka jaitsi ziren itzaletan, itsuka, **estropezuka**, haitz, sasi eta adar idorren artetik arrastaka, behera eta behera segitzerik izan ez zuten arte. Agustin Otsoa

Itsumustuka, **estropezuka** egin zuen korri, jendeak zuzendutako begirakune herratsuei eta iruzkin gaitzesgarriei arretarik eman gabe. Patxi Zubizarreta

"Egongo al zarete geldi behingoz!", bota die ama batek bere aurretik lasterka eta **estropezuka** igaro diren mutiko biei, Hotzak harrapatu, oratu eta estutzen gintuen, baina han jarduten genuen, irristaka, bultzaka eta **estropezuka**, oinak bustirik, atzamarrak hozmindurik, belarriak gorriturik, begiak gaziturik, sudurra zaldiko nekatuen antzean lurrina zeriola. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero nekez zutitu eta ziegako ate aldera joan zen **estropezuka** eta bihotza pilpiraka. Fernando Rey

Nekatuta eta **estropezuka** ailegatu nintzen Ikastetxera. Joseba Sarrionandia

Balantzaka eta **estropezuka** zebilen. Agustin Otsoa

2 irud/hed

Estropezuka osatuko du bertsoa, eta askotan, aurrez pentsaturiko bukaerak ere ihes egingo dio. Andoni Egaña

Aurrena lan neketsua: idatzitako ikur haiek letrak zirela ezagutu, bakoitza nola ahoskatu behar zen ikasi, **estropezuka** irakurri, esaten ari zenaren esanahia sumatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baldar jario hasi nintzen hizketan, **estropezuka**. Anjel Lertxundi

Horrela, laino artean jauzika eta **estropezuka**, erori egin zen armadura urregorrizkoa sumendian. Felipe Juaristi

Bettini Quic Stepekoa hasi zen bizi, baina US Postalek hartu zuen berehala lehen postua, eta haren doinuan joan ziren dantzan atzekoak, **estropezuka** batzuk eta arin besteak. Berria - Kirola

Iaz, ondo zebilen Alemaniako itzulian erori arte, baina handik aurrera **estropezuka** ibili zen. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estropezuka egin (3); **eta estropezuka** (12)

---

estropozo ik **estropezu**.

---

estropozoka ik **estropezuka**.

---

estropozoro *izond adkor***

Nire hipotesia hori egia balitz, zer izan nintzen ba itsu **estropozoroa**! Anjel Lertxundi

---

estropozu ik **estropezu**.

---

estropozuka ik **estropezuka**.

---

estroputz ik **estropezu**.

---

estruktura **1** *iz* egitura.

Egituratzea gomendatu zituzten, hau da, haien **estrukturetan** sartzea. Berria - Harian

Esmeraldak duen berezko edertasun hori, zalantzarik ez, numeroei lotua dago, eta haien ondorea da -esmeraldaren berezko numeroena-, zeinek pisuaren, konposizionearen eta kristalaren **estrukturaren** berri emaiten diguten. Joan Mari Irigoien

Ongi eginak direnean, konparaketak ez dira bakarrik hiztegi mailan egiten, baita mintzairaren **estrukturan**, esaldien egituran, gramatikan eta hotsetan. Herria

Pentsatu dut, ordea, hobe dela horretaz ezer ez esatea eraikitzeko materialen horniduraz hitz egin arte, hauen elkarketaz burutzen baitira eraikinak **estrukturaren** aldetik eta tratamendu egokiaren aldetik. Santiago Iruretagoiena

Formato txiki eta ertaineko **estrukturak** egin ditu, alanbre, aluminio eta pinturarekin. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haste hastetik Euskal Herriko sindikataren helburuetan zen herri huntako laborantxari bere **estruktura** profesional eta administratiboak emaitea. Herria

Hasiera-korapiloa-bukaera **estruktura** klasikoa. Anjel Lertxundi

Zimendu horiek, ahal bada, **estruktura** sendo-sendoarekin bete beharko dira. Santiago Iruretagoiena

Liburu honetan errealitatearen geruzen arteko harreman ezkutukoa, sinbolikoa eta poetikoa eman du aditzera, **estruktura** paraleloetan eratuz. Berria - Harian

Ametsek hautsia omen dute beren **estruktura** narratzailea; jauzika eta elipsi sekulakoak eginez ibiltzen omen dute beren bide laburra. Anjel Lertxundi

Dekonstrukzio izenak hala iradokitzen duen arren, ez du suntsipena proposatzen, baizik eta esperientziaren **estruktura** linguistikoaz jabetzea. Berria - Kultura

Nire **estruktura** mentala ere zati autonomoez osatua dago, disjecta membra halako batzuez. Anjel Lertxundi

Cassinik bidalitako informazioarekin eta argazki horrekin Feberen barruko **estruktura** nolakoa den argitzeko modua izango dutela uste dute astronomoek. Berria - Gaiak

Aurpegiko azala ez ezik, sudurra, ahoa, ezpainak, bekainak, betazalak, larruazalpeko gantza, zenbait muskulu, sudur-kartilagoa eta nerbiopeko **estruktura** ere errekuperatu beharko dituzte zirujauek. Berria - Gaiak

Erromanizazioari dagokionez ere, Gipuzkoa erdiguneko kostaldean aurkitu diren **estruktura** bakarrak dira Zarauzkoak. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Karitatea, baina, jabetza eta aberastasun **estruktura** horretako parte bat da. Berria - Gaiak

· Txosten horrek dioenez, KPIak ez du «kontsumo **estruktura** desberdinen errealitate anitza» irudikatzen. Berria - Ekonomia

---

estruktural *izond* estrukturarena, estruturari dagokiona.

Kontzeptu-mota bakoitzaren karakterizazio **estrukturala** zein funtzionala egiten du, betiere baldintza formaletan auzia jarriz. Askoren artean

Azalpenaren eta aurresanaren arteko simetria **estrukturalaren** tesiari funtsezko kritikak egin zitzaizkion. Askoren artean

Teoria zientifikoaren azterketa **estruktural** estatikoan baino gehiago teoria zientifikoaren azterketa dinamikoan jartzen da arreta. Askoren artean

Galdera horri erantzuteko zientziaren artikulazio **estrukturalean** eta funtzionalean hainbat faktorek duten eragina aztertu behar da. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aldaketa estrukturalak (3)

---

estrukturalismo *iz* gertakari sistema batean, eskuarki horiek funtsatzen dituzten egiturak aztertu behar direla dioen teoria.

Europan Pragako Zirkulukoak eta horien ondorengoak dira **estrukturalismoa** hotsaren azterketan garatu dutenak. Lourdes Oñederra

Teoria unibertsalistetan (**estrukturalismoan** bezala), herri guztiei dagokien alde komuna bilatzen da. Askoren artean

Estrukturalismoa bezalako jakintza berriak eta askatasun sexualaren aldarrikapenek aise igaro zituzten unibertsitatearen hormak. Anjel Lertxundi

Frantzian **estrukturalismoa** eta postestrukturalismoa hedatu ziren, "susmoaren eskolaren maisuak" (Karl Marx, Sigmund Freud, Friedrich Nietzsche) berreskuratu bezain fite, Ferdinand de Saussure-ren linguistika estrukturalistaz gain. Askoren artean

Estrukturalismoaren esparruan egindako gramatika-lanak gutxietsi gabe, onartu beharra dago abiapuntutzat zeuzkaten hipotesiekin ezin zirela urrun heldu. Itziar Laka

Estrukturalismoa jorratu du, Ipar Euskal Herriaren egoera, Jainkoaren heriotza, Marcuseren emaria. Berria - Harian

Estrukturalismoan , arazo handia izan zen neutralizazioarena. Lourdes Oñederra

---

estrukturalista **1** *izond* estrukturalismoarena, estrukturalismoari dagokiona.

Otegik azterketa **estrukturalista** egin zuen; Toledok ere bai, baina semiologiaren edo narratologiaren ildotik. Berria - Kultura

Dekonstrukzio hitza asmatu duen Jacques Derridak testuak ikertzeko bide tradizionalak, biko aurkakotasunetan oinarritutako bide **estrukturalistak** , baztertzen ditu eta ez du ez sistema, ez teoria, ez metodo ezta egitaraurik ere nahi. Berria - Harian

Neopositibismoaren ondokoen analisi **estrukturalista** zientifikoetan. Askoren artean

Frantzian estrukturalismoa eta postestrukturalismoa hedatu ziren, "susmoaren eskolaren maisuak" (Karl Marx, Sigmund Freud, Friedrich Nietzsche) berreskuratu bezain fite, Ferdinand de Saussure-ren linguistika **estrukturalistaz** gain. Askoren artean

2 estruturalismoaren aldeko pertsona.

Beste batzuk, semantizistak -van Fraassen, **estrukturalistak** , etab.-, lehen gai-zerrenda gaurkotzen saiatu ziren, hura Kuhnen galbahetik iragaziz. Askoren artean

Semantizisten eta **estrukturalisten** arabera, ostera, teoria ez da identifikatzen sistema formal edo hizkuntz formulazio batekin, eredu klase batekin baizik. Askoren artean

---

estrukturalki *adlag* era estrukturalean.

Bi hizkuntzak **estrukturalki** guztiz ezberdinak dira, eta egoera sozial eta politikoari dagokienez ere oso bestelakoak. Berria - Kultura

Bere hira adierazteko, giza ahotsa erabili zuen, zeina baitzegoen berari loturik hezurrezko esfera-antzeko zulatu baten inguruan **estrukturalki** ezarririko haragi-masa batez, eta gainean han zegoen bera, kapela. Xabier Olarra

Gatazka gainditzeko prozesua denen artean egin behar da eta Kontseilu horrek, berez, **estrukturalki** , ezin du hori egin. Berria - Euskal Herria

Pentsatzekoa da ondoko hilabeteetan harreman horiek konkretizazio zerbait izaten ahal luketela **estrukturalki** . Berria - Euskal Herria

---

esttu ik **estu**.

---

estu **1** *izond* meharra.

Hesi hostotsuz bereiziak ziren bide **estu** ordenatuak, bide bareak, zehazki eta arauz inausitako bi horma hostotsuren artean. Josu Zabaleta

Orduan ikasi nuen lurralde honetako egoitza zahar gehienek dituztela horrelako pasabide **estu** luzeak hormetan, sototik ganbarara. Josu Zabaleta

Etxeak garaiak dira; karrikak, **estuak** eta ospelak, eguzkia ilunabarrean baizik ez baita sartzen bertara. Felipe Juaristi

Mendate haietan erraza zen etsaiak geldiaraztea, menditartea **estua** baitzen eta binaka baizik ezin ziren igaro. Elizen arteko biblia

Beste danbateko ozen bat entzun zen, eta landa-bide **estu** batean aurrera joan ziren ziztu bizian. Iñaki Mendiguren

Pasealeku **estu** bat zedarritzen zuten zuhaitzek. Aingeru Epaltza

Euskal Herrian orain berrogei bat urte genituen bezalakoak dira errepideak, **estuak** eta segurtasun neurri handirik gabeak. Anjel Lertxundi

Presoek ez zuten berez kuartelaren espazio **estua** utzi behar. Joseba Sarrionandia

Harryk ikusten zuen kale **estu** iluna ez zen inola ere Diagon kalexka. Iñaki Mendiguren

Joanesek karrika **estu** harlanduz apainduetatik gora jo zuen kontzeju aldera. Felipe Juaristi

Elizaren inguruan kiribildutako kale **estu** bihurrietan gora. Anjel Lertxundi

Bihurgune **estu** batean errepidetik irten eta amildegira egin zuen jauzi bere auto barruan. Aritz Gorrotxategi

Autobusak, aldapa **estu** batean, bi ibiltari motxiladun belar hesiaren babesera salto egitera behartu zituen. Koro Navarro

Ibar sakon bat da, zintzur **estu** bat bi malda harkaiztsu, basoz bete, handiren artean. Josu Zabaleta

Leihoek aranondoz betetako jardin luze eta **estu** batera ematen zuten. Xabier Olarra

Kotxearen barrualdea **estua** eta itogarria zen. Jose Morales

Zaharren etxe zuri harrizkoak amaigabea zirudien bere leiho **estu** ugariekin. Jose Morales

Sei pisuko eraikina zen, leiho **estuekikoa**. Lopez de Arana

Bide **estu** eta zuloz betea. Aitor Arana

Beren konkisten aurretik itsaso **estu** eta harkaitzez bete baten bazterrean bizi zirenez, harkaitz haietatik beretatik atera zuten etekina. Iñaki Iñurrieta

Eliza **estua** zen, behar bezain iluna eta erabat hutsik zegoen. Alberto Ladron Arana

Edozein lurjaberen herrixkara iritsirik, ikusgura begiratzen nion zurezko kanpandorre **estu** eta garaiari edo zurezko eliza zahar, zabal eta ilunari. Jose Morales

Beti grisa zen zerurantz ematen zuen leiho kristalgabe, altu eta **estu** baten aurrean. Urtzi Urrutikoetxea

Harryren ohe ondotik igaro eta zurezko eskailera **estu** batean gora joan zen Stan. Iñaki Mendiguren

Eskailera kiribil **estu** bateko paretan zintzilika zegoen margolan baten barruan. Iñaki Mendiguren

Gela ziztrin horretan, hiru hankako ohe **estu** bat hormara hurbildu, eta lastaira-antzeko bigungarri txiki bat ipini zuen gainean. Jose Morales

Hatz lodi batzuetan nekez sarturiko eskularru **estua**. Jose Morales

Lehenbizikoa Banffeko mendi-gidari bat zen, oso mendebaldekoa tankeraz: alkandora, jeans **estuak** eta cowboy kapela. Xabier Olarra

Blusa eskote handiduna, gona **estu** ñimiñoa eta zapata takoidunak. Aingeru Epaltza

Praka **estu** beltzak eta jertse beltza ditu jantzita. Oskar Arana

Egia esan, zapata **estu** hauekin gorriak ikusiz etorri naiz honakoan. Joxemari Urteaga

Atorra **estuak** ez zion minik ematen. Gotzon Garate

Benda **estu** batekin lotuko bagenio. Xabier Mendiguren Elizegi

Hark ezin zuen erditze normala izan; zailtasunen bat izan behar zuen; pelbisa **estua** izatea, zerbait. Josu Zabaleta

Sudur **estu** baina kakoa, begi distiratsu eta begirada umela, eta bizar labur eta biribilarekin bat egiten zuen bibote urdin ederra. Urtzi Urrutikoetxea

Hemen izango da begiratzea Betaniatik Jerusalenerako bidea, ea zabala zen ala **estua**. Patxi Altuna

Henne ijito bat bezain beltza zen, aurpegia **estua**, zuloak masailetan, ihar-iharra: hezurra eta azala. Koro Navarro

Haren ondoan, urrezko disko itxurako kobrezko plater bikain batean, edontzi **estu** batzuk, gainaldea puntuz eta kolorezko irudiz bete-betea zutenak. Jon Muñoz

Sukaldea txikia zen, eta **estu** samarra. Iñaki Mendiguren

Estua zen atea, baina aise sartu zen han aulki gurpilduna. Jon Muñoz

Gero zubi baten ondora eraman zuen, eta ezin zitekeen hartatik pasa arrisku handiz izan ezik, oso mehea eta **estua** baitzen. Askoren artean

Halakoak hobeto nabarmentzen dira leku itxi **estuetan**: belar moztu berriaren azpian gordetako sugeak bezala, beroa behar dute suspertzeko. Anjel Lertxundi

Oinak motzak eta behatzaldean zabalak; **estua** bularra; besoak argalxkak. Jon Muñoz

Euskara ez da, dagoeneko, Euskal Herriko muga **estuetan** bizi den hizkuntza, mugarik gabea delako Euskararen Herria. Koldo Zuazo

Bihotzetik irten eta gero, zirkulazio sistemikoko arterietara banatzen da lehenik odola (8.2 irudia); handik, arteriola izeneko beste hodi txikiago batzuetara, eta kapilar **estuetara** gero. Irene Aldasoro

Aldaka estuak galtza are **estuagotan**. Joxe Austin Arrieta

Azken aldiotan irudiari buruz egin diren azterketa asko eta asko diziplina-ikuspegi **estuagotatik** abiatuta egin badira ere. Josu Zabaleta

Ibaiaren gainean luzatzen den pasarela estua da, **estuegia** aukeran, eta, oholak zartatuak daudenez, guztiz desegokia takoi luzeen gainean ibiltzeko. Patxi Iturritegi

Izena markatuta, trastearen memoriak zenbaki bat egotzi zuen pantaila argiztatu **estura**. Aingeru Epaltza

Haien artean baziren kopeta **estuko** eslabiarrak, odolean Inperioko ezaugarri eta bereizgarri guztiak nahastuak dituztenetarikoak. Xabier Olarra

Diktadurak ez zuen batere gastatzen bide **estuko** tren haiek berritzeko. Mikel Hernandez Abaitua

Han Joan ziren beraz lorategian behera betiko norabidean, tenis zelaitik aurrera, panpako belarretik aurrera, hesi **estuko** ataka hartaraino. Anton Garikano

Buru-ukaldi batez eskertu nion faborea, eta xeheak itzuli zizkidan leihatila **estuko** zirritutik. Aingeru Epaltza

Kopa kapelu eroria eta hegal **estukoa**, joskuretan higaturiko lebita, botoi biko bat lotua, erloju kate lodia kornalinako giltzarekin, nola-halako tratuetarako izena ematen duen sosik gabeko judu aurpegikoa. Koldo Izagirre

Hiriaren bi aldetara kai eder bat dago, sarrera **estukoa**. Juan Kruz Igerabide

2 hertsia, tinkoa; larria.

Poztu egin nintzen ataka **estu** hartan ere oraindik ironia erreserba agortu ez zitzaidalako. Harkaitz Cano

Giro **estu**, zorrotz samar kontrolatutako batetik beste giro laxoago eta lasaiago batera igarotzetik sortu ote zitzaidan? Xabier Mendiguren Elizegi

Gauza jakina da kontzeptu horrek (jatorri enpirikoa du, berez) oso lotura **estua** duela filmeko irudiak eragiten duen eta eremua egiaz espazio sakon bat dela uste izatera eramaten duen errealitate-inpresioarekin. Josu Zabaleta

Zientziaren alderdi berri horrexek, teknologia egunetik egunera orohartzaileago batekiko lotura **estu** horrexek markatzen ditu hain sakonki gaur egungo gizarte-bizitza eta kultura. Juan Garzia

Hitzaren zentzurik **estuenean**, fisikoki gertatzen diren hots guztiak dira alofono. Lourdes Oñederra

Harreman **estua** eta luzea izan baikenuen berarekin. Askoren artean

Besarkada **estu** batean luzaro egon zen mutilarekin. Gotzon Garate

Bazen han larrialdi **estu** bat, esan gabe adierazia. Jon Muñoz

Luzamendutan ibiliz gero, kontu **estua** eskatuko dizue Jaunak zeuen Jainkoak, eta errudun bihurtuko zarete. Elizen arteko biblia

Amnistiaren lehenengo legeak irizpide **estuegiak** zituela jabetu zirenean, lege malguagoa onartu zuten. Berria - Euskal Herria

Aspaldiko borrokarik **estuena** eskaintzen ari dira traineruak TKE ligan. Berria - Kirola

Uste zuen lehia **estuegia** zela, eta Bush ateratzen bazen irabazle, esan zuen, ahaztea geneukan "kontserbadore errukitsuen" gaineko kalaka inozo hori guztia. Oskar Arana

Zuri-zuri zegoen, trantze **estu** bat pasatzen ari balitz baino abailduago. Anjel Lertxundi

Minutu **estu** batzuk joan ziren horrela; luze, oso luze joan ere. Aitor Arana

Une batzuetan frantziskotar ebanjelio-bizieraren freskotasuna eta askatasun alaia aurkituko du, eta beste batzuetan, berriz, irizpide eta arau guztiz **estuak**. Askoren artean

Liburuak apal **estuetan estuegi** sartuta ikustea zen Ruche jauna gehien haserrearazten zuten gauzetariko bat. Jon Muñoz

Horrela elkartu ziren berriro, azkenean, Éomer eta Aragorn, gudaren ordurik **estuenean**. Agustin Otsoa

Hamar egun joan ziren Joseba Catherineren etxean egon zen ilunabarraz geroztik, eta azkenik heldu zen eguna, ataka **estuko** eguna. Iñaki Zabaleta

Baina zientzia fikzio zale askori irudimen **estukoa** iruditzen zaie. Karlos Zabala

Zorrotzegia zen horretarako, ikuspuntu **estukoa**, politikak eta botereak beharrezko duten malgutasunik gabea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Parte-hartze handia, esprint **esturako**. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Botila mutur-**estu** horrentzako nahiko aproposa den beste bat eman diot -ziurtatu zuen, gau-mahaira begiratu eta atzamarraz seinalatuz-. Joxemari Urteaga

Ez ezazu orain **estu**-plantarik egin, Dolmancé; nirean bezalaxe sartuko da zurean ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eskultura barrokoetako oihalezko jantzien azpian begiratzea, konfesaleku barruan sartu eta aitortzetara jolastea, koruko eskailera ilun-**estuetan** gora eta behera ibiltzea. Xabier Mendiguren Elizegi

4 *adlag*

Eskua **estu** itxita zeukan tapakien gainean. Iñaki Mendiguren

Arras serio zegoen, ezpainak **estu**, begiak argi. Karlos Zabala

Besartean, **estu** hartuta, katu gorrixka handi bat zeukan. Iñaki Mendiguren

-Eutsi, Joantxo, eutsi -xuxurlatzen zidan amak, sorbaldetatik **estu** helduta-. Juan Kruz Igerabide

Beso batez Dudley **estu** besarkatu eta musu handi bat eman zion masailean. Iñaki Mendiguren

Hantxe egon ginen eserita ezer esan gabe, elkar **estu** besarkatze hutsaz konformatuz. Xabier Olarra

Makila magikoari **estu** heldu berriro, eta prest jarri zen ikasgelaren erdian. Iñaki Mendiguren

Gero, aginduak eman zituen Mikel Strogoff **estu** lotzeko eta gainerako gatibuekin Tomskera bidaltzeko. Karlos Zabala

Jaiki zaitezte denak! -zioen oihuka, bihotza **estu** eta oso urduri. Aitor Arana

Giharrak dar-dar, arnasa **estu**, imintzioka, ezin izan diozu negarrari eutsi. Rafa Egiguren

Bere barrua **estu** eta ilun zuela, Harryk ateari tira egin zion zabaltzeko. Iñaki Mendiguren

Bere poza **estu** gorderik berezkoa ez zuen kontrol-erakustaldi ezohiko batez. Oskar Arana

Bai, adiskidea, **estu** erabili ninduan egun hartan. ustekabean, espero ez nuen zalantza batek harrapatu nau **estu**: [...]. Jose Morales

Estu agindua zuen bere gaixotasunaren berri azken unera arte eman ez ziezaioten. Karlos Zabala

Bien bitartean zuen nahi guztiak **estu** betetzeko agindua eman dit. Aitor Arana

Barruan jendea **estu** pilatuta. Urtzi Urrutikoeetxea

Kezkatsu samar sentitu nintzen bat-batean, bihotza taupadaka, eztarria **estu**. Josu Zabaleta

-Uste duzue Black oraindik gazteluan egongo dela? -xuxurlatu zien Hermionek **estu** eta larri. Iñaki Mendiguren

Kartak zorrotik ateratzeko ahaleginetan ari nintzen, baina oso **estu** sartuta zeuden. Bernardo Atxaga

Bai **estu** gindoazela autobus-plataforma hartan! Xabier Olarra

Diruz **estu** samar genbiltzan, zeren nik ez nuen lanik egiten, eta Ryokok ez zuen tatuaje eginean ibili nahi sos gutxi batzuk ateratzeko. Javi Cillero

Aldi berean nengoen **estu** eta lasai. Hasier Etxeberria

Palermoko bigarren printzeak lehengo lepotik zuen burua, lehengo izua barrenean sendo eta **estu** sartua, bera armaduran bezala, irten ezinik. Felipe Juaristi

Burua itzuli nuen, bihotza **estu**. Aingeru Epaltza

Jadanik **estu** geratzen zitzaizkidan gazte-denborako elastikoak deskartaturik, berriro ere anaia txikiarengana jo behar izan nuen Iban Zaldua

5 ***estu bildu*** *(corpusean orobat* ***estubildu*** *g.er.)*

Burusia **estu bildu** nuen ez hozteko, eta eginahalak egin nituen ahalik bizkorren nire gela epelera joateko. Urtzi Urrutikoetxea

Atze eta aurre, **estu bildua** naukazu, zeure eskua nire gain ezarrita. Elizen arteko biblia

Gona, berriz, gerriaren inguru guztian **estu bildurik** eramaten da. Jose Morales

Aire libreko dendak, ele eztiz beteriko saltzaileak, oinezko **estubilduak**, erosle hagitz presatuak, feria esan ohi zaion oihu, irri, irain eta kantu zirimola hau guztia biziagoa eta alegeragoa da Espainian. Koldo Izagirre

6 ***estu hartu***

Besartean, **estu hartuta**, katu gorrixka handi bat zeukan. Iñaki Mendiguren

· **Estu hartuko** dut Jerusalem: intziriak eta negar-zotinak izango dira, eta opariak erretzeko aldarea bezala jarriko dut hiria. Elizen arteko biblia

Jainkoa dardarka sumatzen du, **estu hartuko** duten galdeketa latz baten atariko izu-laborriak hartua. Iñaki Segurola

Horixe da neskatoak azkeneko behar duen gauza, egonarririk gabe eta bete ezinezko eskaerekin **estu hartuko** duen emakume burges neurotiko bat. Oskar Arana

Ez ezazu hain **estu hartu**. Oskar Arana

Idorraren hila, sikutearen hila, agorrarena, euri gutxi samar egiteaz aparte, beroak lurra erre eta **estu hartzen** duelako. Pello Zabala

· Ondorio lazgarriak eragiten ditu batzuetan arauak **estuegi** hartzeak. Joxerra Garzia

6 ***estu eta larri*** *adlag*

Urduri, **estu eta larri,** hartutako mezuen karpeta zabaltzen du, baina..., karpeta hutsik dago. "Lau egun besterik ez dira falta!", errepikatu nuen **estu eta larri**. Antton Olano

Aita ere **estu eta larri** egonda haurraren zain. Luis Elberdin

Hor dabiltza gero, **estu eta larri,** irriak, zirriak eta musuak baino ez dituztelarik bidelagun. Mirentxu Larrañaga

-Lana bukatu zenuen -esan zuen, **estu eta larri,** defentsiban jarririk-. Migel Angel Mintegi

Oraintxe ari gara anaiari egin geniona ordaintzen, hura **estu eta larri** erreguka ari zitzaigunean ez baikenion jaramonik egin. Jose Antonio Mujika

7 ***estu-estu*** *(orobat* ***estuestu*** *g.er.)*

Lurrezko pasabide **estu-estu** eta apal batean zegoela ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Mantal bitxi bat zeraman, gauza astun bat, besoen azpitik igaro eta bizkarra inguratzen zioten zintak zituena, gero berriz aurrean gurutzatu eta korapilo **estu-estu** batean lotzen zirenak. Koro Navarro

Nola joan zen presaka bere komodara, eta nola handik gerriko bat atera zuen, liburua **estu-estu** lotzeko. Iñaki Mendiguren

Denetarik zegoen mahai gainean: letra txikiz **estu-estu** idatziriko orriak. Jose Morales

Gona urdin batez jantzirik, batera zabala eta luzea, bluxa zuria zeraman, gerrian **estu-estu** bildurik, eta buruan zapi zuri bat. Txillardegi

Bular eta ipurtalde **estu-estuak**. Hasier Etxeberria

Ilara **estu-estuetan**, uniforme beltzez jantzitako milaka soldadu lerrokatzen ziren. Alberto Ladron Arana

Alabaina, galtza **estu-estuetan** eta top gaitzean haragi ugari eroriak ageriago, errealitatea bere gordinean azaltzen zen: hogeita bi urteko neskaz mozorroturiko berrogeitakaduna. Aingeru Epaltza

Eguraldiarekiko nire lotura hortxe korapilatu zen **estu-estuan**. Pello Zabala

Estu-estuko laguna du. Harkaitz Cano

8 ***estu-estuki***

Eta giza-harremanak jorratzerakoan **estu-estuki** harremanetan agertzen dira afektuari dagozkion loturak (maitasuna), eta gizarte mailako loturak (politika). Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arau estu (4); **arnasa estu** (6); **artean estu** (7); **artean estu estu** (6); **ataka estu** (6); **bati estu** (5); **begiak estu** (6); **begiak estu estu** (5); **besarkada estu** (11); **besarkada estu batean** (4); **bezain estu** (7); **bide estu** (15); **bide estu eta** (4); **bidexka estu** (5); **burua estu** (6); **denboraz estu** (4); **elkarren kontra estu** (4); **elkarri estu** (6); **ere estu** (16); **ere estu eta** (5); **errepide estu** (4); **eskailera estu** (10); **estu baina** (7); **estu bat** (51); **estu bat zegoen** (4); **estu batean** (59); **estu batek** (5); **estu batekin** (4); **estu bateko** (7); **estu baten** (15); **estu batetik** (18); **estu batzuk** (8); **estu besarkatu** (29); **estu besarkatu ninduen** (7); **estu besarkatu nuen** (4); **estu besarkatu zuen** (8); **estu besarkatzen** (5); **estu bildurik** (4); **estu bizi** (4); **estu dabil** (4); **estu egin** (9); **estu eginda** (21); **estu eginik** (6); **estu estu** (228); **estu estu besarkatu** (15); **estu estu egin** (9); **estu estu eginda** (21); **estu estu eginik** (6); **estu estu eta** (4); **estu estu heldu** (5); **estu estu kokatuta** (4); **estu estu lotzen** (6); **estu estua** (12); **estu estuak** (7); **estu estuan** (7); **estu estutik** (4); **estu eta** (226); **estu eta larri** (130); **estu haren** (4); **estu hartan** (10); **estu hartu** (103); **estu hartu behar** (4); **estu hartu beharko** (4); **estu hartu dute** (4); **estu hartu eta** (5); **estu hartu nahi** (7); **estu hartu zituzten** (5); **estu hartu zuen** (25); **estu hartu zuten** (7); **estu hartuko** (17); **estu hartuta** (14); **estu hartuz** (4); **estu hartzea** (5); **estu hartzeko** (30); **estu hartzen** (34); **estu hartzen ari** (5); **estu hasi** (7); **estu hasi zen** (4); **estu heldu** (11); **estu heldu zion** (4); **estu helduta** (4); **estu heltzen** (6); **estu honetan** (6); **estu hori** (8); **estu horretan** (4); **estu hura** (6); **estu ibili** (13); **estu itxita** (7); **estu jarri** (5); **estu kokatuta** (4); **estu lotu** (14); **estu lotua** (12); **estu lotuak** (7); **estu loturik** (23); **estu loturiko** (4); **estu lotuta** (21); **estu lotuta daude** (4); **estu lotutako** (8); **estu lotzeko** (4); **estu lotzen** (14);

estu luze (5); **estu samar** (13); **estu samarra** (8); **estu sartu** (4); **estu zegoen** (4); **eta estu** (74); **eta estu bat** (4); **eta estu estu** (18); **eta estu hartu** (9); **eta estu hartzen** (4); **eta estu lotu** (4); **ezpainak estu** (8); **galtza estu** (4); **gela estu** (9); **gobernua estu** (5); **hain estu** (29); **harreman estu** (6); **harryk estu** (7); **harryk estu eta** (7); **hortzak estu** (5); **hura estu** (5); **kale estu** (24); **kale estu batean** (4); **kale estu eta** (5); **kalexka estu** (4); **karrika estu** (10); **kontra estu** (16); **kontra estu estu** (14); **korridore estu** (12); **korridore estu batean** (5); **lehia estu** (6); **leiho estu** (5); **leku estu** (5); **lotura estu** (6); **luze eta estu** (4); **oso estu** (36); **oso estu batean** (4); **oso estu hartu** (7); **partida estu** (8); **partida estu batean** (4); **pasabide estu** (11); **soineko estu** (4); **tarte estu** (6); **zen estu** (4); **zion estu** (4); **zuen estu** (8)

ahalik eta estuen (4); **are estuago** (10); **are estuagoa** (5); **arnas estua** (7); **arteko harreman estua** (8); **arteko lehia estua** (7); **arteko lotura estua** (7); **arteko lotura estuak** (4); **askoz estuagoa** (4); **ataka estuan** (4); **ate estutik** (8); **baino estuago** (26); **baino estuagoa** (8); **bat estuago** (9); **beltz estuak** (5); **bezain estua** (7); **bide estua** (5); **bide estuan** (4); **bide estutik** (5); **borroka estua** (7); **borroka estua izan** (4); **elkarlan estuan** (5); **ere estua** (4); **errepide estua** (4); **errepidea estua** (6); **errepidea estua da** (4); **eskailera estuetan** (4); **estu estua** (12); **estu estuak** (7); **estu estuan** (7); **estu estutik** (4); **estua baita** (4); **estua da** (32); **estua dago** (7); **estua dauka** (5); **estua dela** (6); **estua delako** (5); **estua du** (26); **estua duela** (5); **estua duen** (7); **estua dute** (17); **estua dutela** (8); **estua duten** (11); **estua dutenak** (4); **estua eduki** (4); **estua egin** (5); **estua espero** (4); **estua eta** (44); **estua eta ikusgarria** (4); **estua izan** (110); **estua izan da** (7); **estua izan du** (8); **estua izan zen** (31); **estua izan zuen** (16); **estua izan zuten** (20); **estua izango** (46); **estua izango da** (24); **estua izango dela** (8); **estua izango dute** (5); **estua izaten** (8); **estua zen** (24); **estua zuen** (4); **estua zuten** (4); **estuago besarkatu** (5); **estuago eta** (9); **estuago hartzen** (5); **estuago heldu** (6); **estuagoa da** (11); **estuagoa dela** (4); **estuagoa izan** (9); **estuagoa izango** (14); **estuagoa izango da** (7); **estuagoak ziren** (4); **estuak dira** (17); **estuak ditu** (6); **estuak eta** (18); **estuak ez** (4); **estuak izan** (14); **estuak ziren** (7); **estuak zituen** (5); **estuan behera** (6); **estuen artean** (6); **estuetan barrena** (9); **estuetan gora** (5); **eta estua** (28); **eta estua da** (4); **eta estuago** (31); **eta estuagoa** (15); **eta estuagoa da** (5); **eta estuak** (14); **eta estuen** (6); **ezin estuago** (6); **final estua** (5); **garaipen estua** (5); **gero eta estuago** (17); **gero eta estuagoa** (12); **geroz eta estuago** (5); **hain estua** (10); **hain zen estua** (5); **harreman estua** (109); **harreman estua du** (9); **harreman estua dute** (6); **harreman estua dutela** (4); **harreman estua duten** (4); **harreman estua eta** (4); **harreman estua izan** (22); **harreman estuagoa** (11); **harreman estuak** (28); **harreman estuak izan** (6); **harreman estuak zituen** (4); **harreman estuan** (9); **harreman esturik** (4); **harremana estua** (4); **inoiz baino estuago** (5); **jarraipen estua** (8); **kale estuak** (6); **kale estuen** (5); **kale estuetako** (4); **kale estuetan** (10); **kale estuetan barrena** (4); **kale esturen batean** (3); **kaleak estuak** (4); **koska bat estuago** (6); **lehia estua** (78); **lehia estua izan** (27); **lehia estua izango** (19); **lehia estuagoa** (7); **lehia estuagoa izango** (5); **lehia oso estua** (6); **lehiarik estuena** (4); **leku estua** (7); **lotura estua** (76); **lotura estua du** (14); **lotura estua dute** (5); **lotura estua duten** (7); **lotura estua izan** (9); **lotura estua izaten** (4); **lotura estuagoa** (4); **lotura estuak** (12); **lotura esturik** (4); **modu estuan** (5); **muga estuak** (4); **norgehiagoka estua** (4); **oso estua** (45); **oso estua da** (4); **oso estua izan** (11); **oso estua zen** (7); **oso estuak** (12); **oso harreman estua** (8); **oso lehia estua** (8); **oso lotura estua** (12); **partida estua** (19); **partida estua izan** (5); **partida estua izango** (6); **pasabide estua** (4); **pasabide estuan** (4); **praka estuak** (4); **soineko estua** (4); **zaitezte ate estutik** (4); **zen estua** (6); **zentzu estuan** (7); **zentzurik estuenean** (5); **zerikusi estua** (9); **zuen harreman estua** (5)

---

estuagotu, estuago(tu), estuagotzen da/du *ad* estuago bihurtu.

Halabeharrez, kamioi bat husten ari zirela-eta kaleko pasabidea **estuagotu** zenez, nire ondo-ondotik igaro behar izan zenuen. Eduardo Matauko

Angela eta Karmenen arteko lotura estua izan arren beti, polito **estuagotzen** zen gizonek alde egiten zutenetan. Xabier Montoia

Beste gizon askorekin alderatuta inguratu erraza zen bizkarraldea **estuagotu** zuen Mentxuk besoez, bestearen bizkarrezurrean esku biak elkar lotuz. Josu Landa

Eta barre egiten zuen, eroki gozatuz, bere besarkada ahaltsua geroz eta **estuagotuz**, pozezko eromen batean oihuka: [...]. Josu Zabaleta

Lisa ederrak kortsea **estuagotzen** zuen. Karlos Zabala

---

estualdi 1 *iz* larrialdia.

Egun hartan taberna batera sartu eta **estualdi** bat izan nuen. Berria - Euskal Herria

Pare bat urte lehenago Lucyk zuen **estualdi** berbera izan zuen eta, berak bezalaxe, Londresera etorri behar izan zuen. Joxemari Iturralde

Estualdi batean nago. Koro Navarro

Orain, indar ezagutzaile goren honen argipena eman behar dudanez, **estualdi** batean gertatzen naiz. Ibon Uribarri

Arrazoimena ez da bere erruz gertatzen **estualdi** honetan. Ibon Uribarri

-A ze **estualdia**! -deiadar egin zuen Ellenek besoak luzatuz. Lopez de Arana

Froga fisiko-teologikoa bere enpresan trabatzen da, bat-batean **estualdi** horretatik irteteko froga kosmologikora jauzia egiten du. Ibon Uribarri

Hura ere beste **estualdi** batzuetatik ihesi zebilen. Berria - Kultura

Zorteak **estualdi** asko eta haur asko ekarri dizkio. Juan Garzia

-Miseria honetatik ateratzea, **estualdirik** gabe bizi ahal izateko. Martin Anso

Espero diat aurrerantzean honen moduko **estualdirik** ez duala pasa beharko. Agustin Otsoa

Entzun zuen Jaunak haien deiadarra eta ikusi **estualdia**. Elizen arteko biblia

Sendotu bihotza eta eutsi gogor, ez larritu **estualdian**. Elizen arteko biblia

Bere buruaren jabetza erabat galdu ez, eta mingainari eutsi dio **estualdian** jarriko duen hitzik ez ahoskatzeko. Karlos Zabala

Zergatik bidali dituzu zeure anaiak hain urruti, goseak hiltzera eta bestelako **estualdiak** jasatera? Askoren artean

Ez du uholde handiak izutzen ere **estualdian** babesgarri Jainkoaren Semea duena. Askoren artean

Tratu ustela gertatzen da, sartzen dena itsu-itsuan gastatzen bada, zeren geroago **estualdian** gertatzean ezin baita bereizi diru-sarreren zein kopuruk jasan dezakeen gastua eta hau zenbatean murriztu behar den. Ibon Uribarri

Polizia eta guardia zibilez bete ziren inguruak eta, **estualdian**, leihoetako zirrikituetatik begira, ez zeuden lekuan ere hortzetaraino armatutako poliziak ikusten zituzten. Berria - Harian

Horregatik, pozik nabil Kristorengatik jasaten ditudan ahulezia, laido, beharrizan, erasoaldi eta **estualdietan**. Elizen arteko biblia

Gure atsekabe eta **estualdi** guztien artean, adorez beterik utzi gaituzue zeuen sinesmenagatik. Elizen arteko biblia

Zenbat **estualditatik** ez ote zara irten! Juan Kruz Igerabide

Berak atera bainau **estualdi** guztietatik. Elizen arteko biblia

Nik sartu dut **estualdi** honetan, bai, eta nik aterako dut. Patxi Zubizarreta

Arestian pasatutako **estualdiaren** ondotik, lasaiago nengoen. Joan Mari Irigoien

Baina orain **estualdian** daudenak ez dira beti ilunpetan egongo. Elizen arteko biblia

Adierazpen horiek egitean Arzalluz harreman mota horren alde agertzen da, baina efektu bikoitza eraginez: batetik, **estualdi** batean jartzen ditu Zapatero eta PSOE (batez ere PPrekiko) eta, bestetik, EAJren gaineko presioa [...] desbideratzen du. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez eromenean ez goibel, esan zuen Tomek, ez **estualdi** larrian ez diru eske; bera ikusi nahi zuen, besterik ez. Oskar Arana

Fidel dik izena, Albanyn bizi duk, eta **estualdi** ikaragarrietan sartuta zabilek beti. Antton Olano

Nola esetsi didaten, nola eraso didaten, zein **estualdi** latzak igaro ditudan! Jose Morales

Eta ez gara **estualdi** txikian aurkitzen beren dedukzioa dela-eta, ezin baita beren erabileraren eskuduntza nabaria bihurtuko lukeen zuzenbide-oinarri nabaririk aurkeztu. Ibon Uribarri

Nik komunera ihes egiten nuen haren oihuek eragiten zidaten tripako **estualdiak** behartuta. Pello Lizarralde

Badira sofrikarioen bizipen hain harrigarri eta neurrigabekoa dutenak, non ez berak ez beste inork ez baitezake norabidetu horrelako **estualdian**. Joan Mari Lekuona

Sekulako **estualdia** eragiten baitzidaten haren garrasiek. Pello Lizarralde

Esan ezinezko **estualdi** honetan aurkitzen zelarik, arima hau Andre Mariagana eta Santuengana itzuli zen, arren eta arren eskatuz etor zitezela berari laguntzera. Joan Mari Lekuona

3 (hitz elkartuetan)

Lularen aginteak **estualdi** egoera du berriro ere. Berria - Mundua

Ez egin irri beraren **estualdi**-egunean! Elizen arteko biblia

· Barne **estualdiak** gainditzen ninduela egin nituen hogei kilometroak, eta geltokien ilara amaitzen ez bide zelarik. Txillardegi

4 estutzea.

Nik, zer esan ez nekiela, eskutik heldu, eta **estualdi** bat eman diot. Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
egin zituen estualditik (4); **estualdi bat** (4); **estualdi batean** (4); **estualdi guztietatik** (3); **estualdi hartatik** (3); **estualdi honetan** (5); **estualdi latzak** (3); **eta estualdi** (5)

---

estuarazi, estuaraz(i), estuarazten du *ad* estutzera behartu.

Nire behatz puntetatik jasotzen dut bere ile bero horretatik, eta gora eta gora igotzen zait nire nerbioetan barrena, nire soin ataletan, nire bihotzeraino, bururaino, betetzen nau, azalean zehar zabaltzen zait, hortzak **estuarazten** dizkit. Josu Zabaleta

Emakumeei oinordeko izatea galarazten zien legea **estuarazi** zuten arrazoi berberek aldarazi zuten, pixkanaka, emakumeak ahaideen oinordeko izatea galarazi zuen legea. Iñaki Iñurrieta

---

estuardotar *iz* 1371 eta 1693 bitartean Eskoziako erregetzan egon zen Estuardo familiako kidea.

Janzkerari dagokionez, Charles II.aren antzeko arropak zeramatzan, inoiz edo behin, bere karreraren lehenagoko aldiren batean, entzun zuelako zoritxarreko **Estuardotarren** aire berezia zuela. Julen Gabiria

Komunei emandako botereak haiek **estuardotarren** aurka erabili zituztela. Iñaki Mendiguren

Estuardotarren Errestaurazioa deritzona. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

estuario **1** *iz* ibai bokale zabala, itsasaldien eraginpean dagoena.

Standard petrolio-errefinategian hasi zen lanean, Sena ibaiaren **estuarioan**. Joseba Urteaga

Haritzaldeko bi biologoek Gipuzkoan egin dute azterketa, Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria ibaien arroetan Zarautz eta Urolako **estuario** eta paduretan ere behaketak egin dituzten arren, ez dute koipurik aurkitu. Berria - Euskal Herria

Estuarioak dir-dir egiten zuen muinoen artean, ibaiko ura dirdira hutsa zen. Jon Alonso

Bistan da ezen, **estuarioko** ertzetik hain gertu egonik, Porta de Ferrok balio behar zuela, batez ere, pertsona eta merkantzien ibai-garraiorako. Jon Alonso

Lisboa setiatuta dago, finean, zenbait hildako ehortzi dituzte, zaurituak, hildakoen ondoan, bateletan eraman dituzte **estuarioko** beste ertzeraino, eta handik, menditik gora, batzuk hilerrietara, besteak odol-ospitaleetara. Jon Alonso

2 (izenondoekin)

Ondoren baretasuna, Tajoko **estuario** zabala, bi gorputz elkarren ondoan, arraunean. Jon Alonso

Hiria eta lusitaniarren kanpamentuaren artean, lusitaniarrak diogu haiek euren buruari artean ematen ez zioten izena den arren, **estuario** zabala ikusten dugu, hain zabala non, lurretik barna oinez buelta emateko pasatu beharko bailitzateke. Jon Alonso

Irudi ezin ederragoa litzateke arraun-bateltxoa **estuario** geldoa zeharkatuz, inorena ez den uraren erdian. Jon Alonso

Belak zabaldu ziren, eta haizearen laguntzaz, itsasontzia astiro lerratu zen **estuario** grisetik kanpora. Agustin Otsoa

Lurrerantz sartzen den **estuario** argitsuko bi ertzetan hedatzen diren ortuak ikus bitez, hiria habia egiten duen muinoaren eta beste aldeko, mendebaldeko muinoaren artean magal bat bezala hondoraturik dagoen Baixa honetan. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Bigarrenean, Errobi-Urdazubi, **estuario** guneak, ingurumena zaintzeko urratsak, eta itsasoa. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estuario zabala (3)

---

estuasun ik **estutasun**.

---

estuasuntxo ik **estutasuntxo**.

---

estubildu ik **estu 5**.

---

estudiante **1** *iz* ikasketak, eskuarki bigarren edo goi irakaskuntzakoak, egiten ari den pertsona.

Azkenean greba orokorrik ez egitea erabaki dute, oraingoz, langile, **estudiante** eta lizeoko ikasleen sindikatu nagusien 30 bat ordezkarik. Berria - Ekonomia

Tradizioarekin ondo uztartzen da hiri berria; unibertsitate-campus handia dauka, eta bertako **estudianteen** presentzia nabaria da, mutil zein neskena. Jon Arretxe

Tailerraren inaugurazioko bazkaria bukatu zenean, Lubis, Pantxo eta Ubanbe mendiz abiatu ziren etxerantz, "nekazariok **estudianteek** baino lan gehiago egin behar izaten dugulako", Lubisek esan zigunez, eta beste guztiok herrirantz jo genuen plazako jatetxean zerbait hartzeko asmoz. Bernardo Atxaga

Kasik **estudiante** bat bezala bizi zen. Berria - Kultura

Nazka-nazka eginda zeukala haren **estudianteen** kontrako jardun beharrak. Inazio Mujika Iraola

Zuei aspaldi pasatu zitzaizuen **estudiante** gazteekin tontakerietan ibiltzeko sasoia. Jon Arretxe

Itxura bertsua daukate biek, **estudiante** itxura. Jon Arretxe

Granadara itzuli nintzen, **estudiante** ibili nintzen hirira, ikaskide ohien afari baten aitzakiaz. Iban Zaldua

2 (izenondoekin)

Unamuno Bilboko publikoaren aurrean, **estudiante** gazteak Unibertsitatean harrapatu zuen sukar intelektual krausopositibista ari da garatzen. Joxe Azurmendi

Garai batean, gu Bilbora etortzen hasi berritan, **estudiante** gipuzkoar asko -aste barruan hirian eta hiri inguruko auzunetan sakabanatuak- Arriaga atzean elkartzen ginen ostiral larunbatetan, asteburuan etxera bihurtuko gintuzten Irun-Gijon autobusei itxaroten. Pedro Alberdi

Bueno, ezingo dizut diru asko eman, **estudiante** pobre bat izango zara, esan zidan hirira abiatu nintzen egunean. Mikel Hernandez Abaitua

Estudiante ikasia haizela erakutsi, zera, ez edozein nekazari. Matías Múgica

Pisuko ikuspuntu biak, ehuneko hogeita bostarena batetik eta ehuneko hirurogeita hamabostarena bestetik, ez ziren inoiz bat etortzen eta azkenean, berandu samar beti, jadanik **estudiante** ardurabakoak ez ginela eta hurrengo goizean lan egin beharra geneukala gogoratzen zitzaigun. Jon Arretxe

Garai hartan euskarak ez zuen tokirik unibertsitatean, besteak beste unibertsitate publikorik ez zelako (horregatik joan behar zuen jendeak Salamancara, **estudiante** tunante gisa). Pello Salaburu

Helburua agur gisako ekitaldia egitea zen, **estudiante** parrandazale sasoiari adio esan eta langile bizimoduari ongi etorria ematea. Jon Arretxe

Ez gara jada **estudiante** miserableak. Jon Arretxe

Estudiante guztiz ganorabakoak izandako haiek. Jon Arretxe

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aitak lehenagoko giro atseginera itzuli nahi izan zuen, eta hasierako tonu jostari berean, ama ezagutu aurreko **estudiante**-bizitzaren berri ematen hasi zitzaidan: parrandak, ligeak, irakasleei egindako ziri-sartzeak. Anjel Lertxundi

Itxura bertsua daukate biek, **estudiante** itxura. Jon Arretxe

Aitonak ez zuen txintik esaten gerra garaiari buruz, baina Madrileko bere **estudiante**-abenturez, edo amona ezagutu zuenekoaz, behin eta berriro hitz egiten zigun. **Estudiante** amodioa. Iban Zaldua

Zer iraultza-klase egingo genuen noski **estudiante**-koadrila belaxka bat eskutik hartuta. -Esan dizuet ba nik zer duen **estudiante** jendeak buruan. Inazio Mujika Iraola

Penagarri zegoen dena, **estudiante** pisu asko bezala bestalde. Iñaki Iñurrieta

Iruñeko **estudiante** giroan. Jon Arretxe

Makina bat bider entzunda neuzkan **estudiante** garaian egindako ditxosozko bidaia hari buruzko batailatxoak, eta egun hartan berriro suertatu zen betiko leloa: [...]. Jon Arretxe

Ez duzu sinetsiko baina, urte asko-asko ez dela, **estudiante** sasoian, ni boxeolaria nintzen. Jon Arretxe

Nik neure **estudiante** denboran edozelan garbitzen nuen gorputza: marka bako txanpuaz, lagartoz, mistolaz. Jon Arretxe

-Akabo **estudiante** bizimodu hau! Jon Arretxe

Urte gehiago pasatuko ziren, gure **estudiante**-aldia bukatu egingo zen, eta goizetik gauera lanbidearen arazoari aurre egin beharrean aurkituko ginen. Pedro Alberdi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aita-ponteko apaiz-**estudiantea** izan nuen nik. Arantxa Iturbe

5 (izenondo gisa)

Seme bakarra, seme **estudiantea**, seme eskerbakoa. Jon Arretxe

Gau haietan neska gazte **estudianteen** atzetik ibiltzen ziren gixajo biak atsedenik gabe. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estudiante eta (3); **estudiante garaian** (3); **estudiante tunante** (6); **gure estudiante** (3)

---

estudiantina *iz* estudianteek osaturiko musika taldea.

Gizartea euskaltasunaren agerpideak berreskuratzen ari zen, eta orduan hasi ginen frontoietako kantaldietara joaten, dantza eskolara, **estudiantinarekin** hainbat herritako euskal jaietara... Ana Urkiza

---

estudiatu, estudia(tu), estudiatzen **1** du *ad* adimena erabiliz zerbait ulertzen edo ikasten saiatu; gai jakin bat aztertu edo hari buruz eskolak hartu.

Haiek eta ni, artean, unibertsitatera joaten ginen, baina [...] fundamenturik gabe eta gehiegi saiatu gabe **estudiatzen** genuen. Fernando Rey

Nik nahiago nuen **estudiatzea** eta ikastea, bizitza interesgarria eraman, ezkondu eta etxekoandre izatea baino. Ana Urkiza

Hamasei urte zituen, eta prestigio handiko ikastetxe batean **estudiatzen** zuen. Bernardo Atxaga

Biblioteka probintzialera joaten naiz **estudiatzera**. Pedro Alberdi

Seme bat izan nuen emazte gorrotagarri horrekin, seme eskerbako bat, aspaldi hiriburura **estudiatzera** joan eta etxera inoiz ere etortzen ez dena. Jon Arretxe

Nitaz hitz egin zioten, agerikoa omen zen **estudiatu** nuela. Fernando Rey

Aitak erabakia zian orduko Parisen **estudiatuko** nuela, berak ere hantxe **estudiatu** baitzuen: "Han gutxienez mundu zabala ikusiko duk, hemen ez bezala", esaten zidaan. Joan Mari Irigoien

Gino, orduan, Alemaniara bidali zuten **estudiatzera**. Fernando Rey

Sofistikatua baina ez gehiegi, utzikeria-ukitu ondo **estudiatu** batzuekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Nahiko nuke nik haren notak atera, hark bezain gutxi **estudiatuz**. Jon Muñoz

Gogor **estudiatu** behar genuen, baina ez zen erraza gogoa liburuetan atxikitzea, izenorde erlatiboak bere antezedentearekin jeneroan eta numeroan izan behar zuen konkordantzian, edo Nankingo palazio urrunean, edo subjuntiboaren ezaugarrietan. Joseba Sarrionandia

Estudiatzeko asko, arren, errebalida gainditzu gero unibertsitate aurreko ikasturtea oso ondo egingo genuela Obabatik atera gabe. Bernardo Atxaga

Aulkian esertzeko, aulkiko bizkarraldean bermatzeko, ibiltzeko, gauza bat hartzeko, lehengo tokian uzteko zuen modua, dena zeharo **estudiatua** zegoen, behin eta berrizko saioen ondoren modutua. Matías Múgica

Esku mugimendu txiki ondo **estudiatuak** eginez. Koro Navarro

Luis Madrilen **estudiatzen** ari zeneko opor batzuetan izango zen. Lourdes Oñederra

-Aizu, ez zara, ba, kasualitatez -nik galde-, garai batean Zürichen **estudiatzen** egondako Joachim Hencke delako baten senitartekoa izango? Joxe Austin Arrieta

Ea zergatik ez den **estudiatzetik** eta irakurtzetik gelditzen. Anjel Lertxundi

2 (aztergaia edo ikasgaia aipatuz)

Herria **estudiatu** behar da -Costa-k egin duen bezala, esaten du-, eta bere eskolan eskolatu, landu. Joxe Azurmendi

Eta, gure estatus politikoaz ari naizela, puntu hori **estudiatzen** eta sakontzen hasi beharko duk: ez al hindugun, bada, Parisa horretarako bidali? Joan Mari Irigoien

Nuriak goitik beheraino **estudiatua** eta programatua zuen ekitaldia. Joan Mari Irigoien

1968an egin zuen alde, eta, oker ez banago, Zientzia Ekonomikoak **estudiatzen** dabil Lovainan. Rafa Egiguren

Denbora-pasa moduan alemana **estudiatzen** nuen etxean aurkitu nuen gramatika batekin. Fernando Rey

Batasun sistematikoaren lege erregulatzaileak nahi du guk izadia horrela **estudiatzea**, edonon anizkuntasun ahalbait handienaren ondoan batasun sistematiko eta helburuduna egongo balitz bezala amaigaberaino. Ibon Uribarri

Bidea ondo **estudiatuta** daukadalako. Iban Zaldua

Musikeneko bederatzi hari laukoteek eta Baionako hirurek euskal errepertorioko obrak **estudiatuko** dituzte, masster class-ak jaso, eta sorkuntza eta interpretazioa landuko dituzte. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
estudiatu egin (3); **estudiatu zuen** (3); **estudiatzeko gogorik** (3); **estudiatzen ari** (4); **estudiatzen genuen** (3); **nik estudiatu** (3)

---

estudio **1** *iz* estudiatzea; aztertzea. ik **azterlan**.

Hizkuntzalaritza, zeinak konparazioari dagokion lekua eman baitzion, zentzu hertsian, hizkuntza erromanikoen eta hizkuntza germanikoen **estudioetatik** sortu zen. Isabel Arrigain

Aldaketa fonetikoen **estudioak** bi azalpen desberdin ager ditzake, zein ikuspuntutatik egiten den. Isabel Arrigain

Egungo hizkuntzalaritzako **estudio** gehienek hartu dute kontuan Saussureren pentsamoldea edo hura eztabaidatu. Isabel Arrigain

Hizkuntza, errealitate objektiboa eta aginduzkoa da hiztun bakoitzarentzat, eta lehentasun korrelatiboa eman behar zaio **estudioan**: proposaturiko bereizketak eta

mendekotasunak -esaten digu, hitzez hitz- dena argitzen dute. Isabel Arrigain

2 instrumentistari bere ikasketan laguntzeko musika lana.

Menendezen klarineterako eta pianorako zortzi **estudio** interpretatu ditu, baina ordena aldatuta. Berria - Kultura

Hango egonaldian, *Tres estudios* (Hiru **estudio**) eta *Tres cuartetos* (Hiru koarteto) idatzi zituen, besteak beste. Berria - Kultura

Hamazortzi inguru urte zituela idatzi zituen bere obra osatzen duten lanik ezagun eta bikainenak: harizko musika tresnetarako *Tres coartetos* (Hiru koarteto), *Sinfonia en Re menor* (Orkestra handirako Sinfonia Re minorren) eta pianorako *Tres estudios* (Hiru **estudio**) eta *Caprichos* (Kapritxoak). Berria - Harian

3 artelanak egiten dituen pertsonaren langela.

Baserriaren behealde osoa **estudioa** da, artistaren askatasun gune erabatekoa, leizezulo ezinbestekoa. Berria - Kultura

Amsterdametik Der Haagera, La Hayara alegia, joan nintzen bizitzera, Hendrick van der Spyck adiskide eta pintatzailearen etxera, haren baimenaz **estudio** bihurtu nuen gela batera. Felipe Juaristi

Katrin Korfmann artista alemaniarrak (Berlin, 1971) ohiz kanpoko argazki **estudioa** jarri du Donostiako Bulebarrean. Berria - Kultura

Nieto Sobejano arkitekto **estudioak** diseinaturik San Telmo eraberritua zabaltzerako lau urte itxaron beharko dira gutxienez. Berria - Harian

Garai hartan margolari erromantikoek paisaiak **estudioan** margotzen zituzten, zirriborro batzuetatik abiatuta. Berria - Kultura

4 irratsaioak, grabaketak edo telebista programak egiten diren aretoa edo eraikina.

Azkarateko (Nafarroa) Katarain **estudioan** ari dira diskoa grabatzen. Berria - Harian

Argitara emango duen hamaikagarren lana izango da, **estudioan** grabaturiko zortzigarrena. Berria - Kultura

Estudioak, bestetik, amodiozko eszena gehiago sartzen saiatuko dira. Fernando Rey

Bai eta musika egin eta grabatzeko **estudio** bat ere. Berria - Harian

Estudioaren eta kopiaren gastuak kenduta, gainerako dirua taldearentzat izango da. Berria - Harian

Filma amaitu ondoren, **estudioari** ez zitzaion gustatu, eta Wiseri berriro muntatzeko eta beharrezkoak ziren eszenak filmatzeko agindua eman zion. Berria - Harian

Gorroto dut **estudio** profesional batean grabatzea, aukera ixten baitiezu grabatzen ari zaren bitartean gerta daitezkeen kolaborazioei. Berria - Kultura

Argazki **estudio** propioa irekitzea lortu zuen gero. Berria - Kultura

Gero Excelsior **estudioetara** joan nintzen Balter jauna ikusten saiatzeko, Hollywoodera ekarri ninduen gizona. Fernando Rey

Une hartan Azkona **Estudioko** erredakzioa jendez lepo zegoen, eta Ada ere han zen, kasualitatea da gero! Anjel Lertxundi

Antzina Paramounten **estudioak** egon ziren tokiko aparkalekuaren paretik igaro nintzen, eta neskak eta mutilak pasatzen ikusi nituen. Fernando Rey

Duela bi urte *The raven* diskoa kaleratu zuenetik ez du **estudioko** lanik grabatu newyorktarrak, baina aurten zuzeneko lan bat atera du: *Animal serenade.* **Estudioko** musikaria zen finean. Berria - Kultura

Mike Figgisek garai hura aztertu du *Red, white&blues* filmean, eta hura bizi zuten musikari asko bildu ditu Abbey Road **estudio** mitikoetan. Berria - Kultura

Mona **estudio** independiente batzuetara deitzen ari zen telefonoz, lana aurkitzeko eginahaletan. Fernando Rey

Lehenik, denek elkarrekin entseatu, eta gero **estudioan** zuzeneko bat balitz baxua, bateria, gitarra, teklatua eta trikitia denak batera grabatu. Berria - Kultura

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

25.000 metro koadro izango ditu guztira guneak, eta hamabi filmaketa **estudio** hartuko ditu. Berria - Kultura

Argazki **estudio** batean kokaturiko jende multzoa ageri da lehenengoa. Berria - Kultura

Urte bat entsegu-lokalean eman ostean, Iruñeko K-Studios grabaketa **estudioetan** ekoiztu zuten atzo aurkeztutako lana. Berria - Kultura

Grabazio **estudioaz** gain, denda, entsegu lokala, masterizazio **estudioa** eta biniloak egiteko fabrika ditu. Berria - Kultura

Jamaikako hiriburuan, Kingstonen, bertako Tuff Gong musika **estudio** ezagunean bere bakarkako laugarren diskoa izango dena grabatzen ari da. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andoaingo garate estudioan (6); **argazki estudio** (3); **azkarateko katarain estudioan** (4); **azkona estudioko** (6); **balea estudioan** (3); **bere estudioak** (4); **bere estudioan** (8); **bere estudiora** (3); **du estudio** (3); **du estudioan** (5); **duen estudioak** (3); **duen estudioan** (3); **elkar estudioan** (4); **eraiki duen estudioak** (3); **estudio bat** (14); **estudio batean** (9); **estudio de** (3); **estudio hau** (3); **estudio profesional** (3); **estudio profesional batean** (3); **estudio sobre** (4); **estudio sobre la** (3); **estudio txiki** (4); **estudioa da** (3); **estudioa eta** (3); **estudioa oso** (3); **estudioan ari** (4); **estudioan egin** (4); **estudioan egiten** (3); **estudioan eta** (6); **estudioan grabatu** (20); **estudioan grabatu du** (7); **estudioan grabatu dute** (7); **estudioan grabatu zituzten** (4); **estudioan grabaturiko** (4); **estudioan grabaturiko zortzigarrena** (3); **estudioan lan** (4); **estudioan sartu** (3); **estudioko programa** (3); **estudiora itzuli** (3); **estudiora joan** (4); **estudiora sartu** (6); **eta estudio** (6); **eta estudioa** (4); **eta estudioak** (3); **eta estudioan** (6); **eta estudiora** (3); **excelsior estudioetara** (3); **garate estudioan** (7); **garate estudioan grabatu** (3); **garate estudioetan** (3); **hiru estudio** (3); **katarain estudioan** (8); **katarain estudioan grabatu** (3); **lorentzo records estudioan** (4); **mintzairaren estudioan** (3); **records estudioan** (4); **thalia estudioan** (3); **un estudio** (3); **zen estudiora** (4); **zuen estudio** (3)

---

estudiodun *izond* ikasketak egin dituena.

Poza eman zionan bere senarraren arrebaren senarra **estudioduna** izatea eta prest egotea Etxe Goxo gobernatzeko, Garner jauna zendu ondoren. Anton Garikano

---

estudiotxo *iz* estudio txikia.

Zarautz gertuko mendi batean **estudiotxoa** zuen. Berria - Kultura

---

estudiozale *izond* estudioaren zalea dena.

Hiru kontinentetako arraza gorbizien mestizajearen emaitza izan da gizamota espainola, tenperamentu inpromptutsua, kartsu sinestean, ez lan eta **estudiozale** ekuru, egonarriko, baizik matxin bihurri, grinatsu, liskarti. Joxe Azurmendi

---

estuestu ik **estu 7**.

---

estufa *iz* egurra, ikatza edo kidekoren bat erretzen den berogailua.

Guztiek zuten beste zertaz kezkaturik; Errusiatik itzultzen ez zen semeaz, egurrik gabeko **estufaz**, zolarik gabeko oinetakoez, [...]. Juan Garzia

Klase denboran **estufaren** alboan bilatzen genuen epeltasuna. Joseba Sarrionandia

Estufa ondoan eseri naiz, destenore bainengoen, eta murmu astunak hartu baino lehen, patrikan neraman koaderno txikia atera dut. Anjel Lertxundi

Gure atzitzaileak sartzen ziren bitartean, beta izan nuen burkoaren azpian neukan errebolber koxkorra [...] **estufaren** errautsetan ezkutatzeko. Juan Garzia

Adrianek bere zurezko figurak egiteko erabiltzen zuen etxola prestatuko zela ikasgelatzat, adierazi zidan, eskatuta zeuzkatela mahaiak eta arbela, eta **estufa** ere berria ekarriko zutela negurako. Bernardo Atxaga

Errabinoaren semeak **estufa** txiki bat ipini zuen han, Henne izoztuta gera ez zedin. Koro Navarro

Butano **estufa** zen, aurrealdeari su eman eta gori gori jartzen zena. Joseba Sarrionandia

---

estugarri *izond* estutzen duena.

Liburu zahar metek eta, oro har, denetariko trasteen pilaketak sentsazio **estugarri** hura areagotu egiten zuten. Alberto Ladron Arana

Erabaki horretara heldu omen zen (halaxe kontatu zidan berak), zenduaren eritasunaren nolakotasun bitxia, sendagileen galdeketa **estugarri** eta premiatsu batzuk, eta familiako hilerriaren urruntasun eta kokaleku agerikoegia gogoan hartuta. Koro Navarro

Eritasun fisiko larri batez mintzatzen zen nire laguna, adimenaren desordena **estugarri** batez. Koro Navarro

Bazekiten era berean nik banekiela animalia hura ez zela katagorri bat, ez eta untxi edo erbi edo erbinude bat ere, ez behintzat benetakoa, ez behintzat hezur-haragizkoa, geuk geure buruei ametitu genien amets edo lizentzia literario bat baizik, biziaren zama **estugarritik**, lipar ezdeus batez bederen, atseden hartzeko. Karlos Linazasoro

Amets nahasi eta **estugarri** batetik esnatu berria nintzela irudi zuen. Koro Navarro

Isilune luze eta **estugarria** egin zen berriro. Jose Morales

Neskatoaren barre luzea amaitu ondoren sortu zen isilunea **estugarria** zen. Ibon Uribarri

---

estugune *iz* gune estua.

Jaunaren aingerua aurreratu eta inori eskuin-ezkerrera egiten ez uzteko moduko **estugune** batean gelditu zen. Elizen arteko biblia

Arieteak berak ehun eta lau oineko luzera zuen, behean hamabost hazbeteko zabalera eta lodian oin bat; buru aldera egiten zuen **estuguneak** luzeran oin beteko neurria zuen, lodieran bederatzi hazbetekoa. Santiago Iruretagoiena

Prouvaires kaleko **estugunean**, Claudek begiak kliskatu eta Saint-Eustachera begiratzen zuen, estalpeko kalearen muturrean. Karlos Zabala

Abotsak sarritan eztarria mintzen eta, oihuak kanporatzean, zintzurrestea garrazten du, bistan denez,hotsen lehenkiak pilo handiagoan **estugunetik** kanporatzen hasi direlako eta, berau beteegi eginik, ahoaren atea urratzen dutelako. Xabier Amuriza

Harryren hitzen hurbiltasunak hainbesteko estutasuna sortarazten zuen Ellenengan, ezen ematen baitzuen haren jantziaren **estuguneetako** zirrikituetan zehar aurrera egin nahi zuela. Lopez de Arana

---

estuka ik **arnas**.

---

estukatore *iz* estuko lanak egiten dituen igeltseroa.

Helduden ostirale astirian abiatzen da Baionako Elkartetxean (34, Pannecau karrika) Jean Jacques Allain **estukatoreak** hor Elkartetxeko Kultura Taldearen kondu hamar egunez agertuko duen erakusketa "Marrazki bat egidazu" izenburupean. Herria

Estukatore lana da gisu eta plastra nahasiz margo inguruen edertzeko egiten dena. Herria

---

estukeria *iz* estuki jokatzen denaren ekintza gaitzesgarria.

Inork baino mingoskiago ditu pairatu eta ditu salatu euskaldunon **estukeria** eta abertzaleen zintzokeria, esaterako. Joxe Azurmendi

-Ke pixka bategatik ez gaituk **estukerietan** ibiliko, ezta? Aingeru Epaltza

---

estuki 1 *adlag* estutasunez; estukeriaz; estu. ik **esku 4**.

Neskatoa **estuki** besarkatzen zuten besoak lasaitu zituen Egutxik, eta samurki besarkatu zuen. Ibon Uribarri

Dastamena eta usaimena oso **estuki** erlazionaturik daude (bi zentzumenak ahultzen ditu buruko hotzeriak), baina dastamena ez da usaimena bezain sentikorra. Irene Aldasoro

Munduaren iskanbilatik bakartua egon arren, kalezuloak bizi burrunbatsu berezkoa du, munduaren sakonenean **estuki** errotua, iraganaren sekretu zenbaiti atxikia. Patxi Zubizarreta

Badira, beraz, bakuntasun solidoko lehenkiak, zati minimoetan **estuki** bateginak, eta ez hauen biltzetik bateratuak, bakuntasun eternaletik indartuak baizik. Xabier Amuriza

Ahozko tradizioen itxura berezia nabari da artean ere kontakizunotan: soilak dira, adar apaingarririk gabeak, funtsari **estuki** atxikiak eta, horrexegatik, indar bereziz hornituak. Jose Antonio Mujika

Nire momentu kritiko hau ere **estuki** dago telefono bati lotua. Patxi Zubizarreta

Lurrari **estuki** lotutako bizimodua zen haiena. Edurne Elizondo

Auzi hauekin **estuki** loturik. Joan Mari Lekuona

Hain zuzen ere lanak lotzen zuen **estuki** gizon harengana, eta baita bere sentimenduen tiraniak ere. Patxi Zubizarreta

2 *estu-estuki*

Eta giza-harremanak jorratzerakoan **estu-estuki** harremanetan agertzen dira afektuari dagozkion loturak (maitasuna), eta gizarte mailako loturak (politika). Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estuki lotua** (5); **estuki lotuak** (3); **estuki loturik** (7); **estuki loturiko** (6); **estuki lotuta** (14); **estuki lotuta dago** (3); **estuki lotuta daude** (3); **estuki lotutako** (6); **estuki lotzen** (3); **eta estuki** (6); **hain estuki** (4)

---

estuko *iz* ur lekedatsu eta igeltsuzko masa, paretak egokitzeko erabilten dena.

Señora Gracielaren etxea gure berriemailearenaren peto-petoa zen; oin bakarrekoa, paretak **estukoaren** eta pinturaren premian, aterik ez, errezel horixka bat barrualdeko haize-laster arinak astindua, eta ezer gutxi gehiago. Jon Muñoz

---

estun *iz* uztaia.

Korridorearen bukaeran familiako kide frantsesen erretratuak zeuden, buru-**estunekiko** dama zaharrak, ilea hautsez zuritukoak, jaun ezezagun, gizen, ileordedun eta ezpain lizunekoak. Xabier Olarra

---

estuntza *iz* katea.

Itz erdi bat esan ba, eta or nauzu Ama, seme zintzoenak dun txera ta maitetasun beroena baño askoz anaitasun areagoz, zure mende-joputza lotzen duan **estuntza** apurtzeko, zaiñetan nik irakiten detan euskal odol-gorria (erri-zaleen azia!) noiz-nahi ixurtzeko prest. Xabier Mendiguren Elizegi

estupa

Rudyard Kipling idazleak maisuki deskribatu zituen Road to Mandalay (Mandalayra bidea) liburuan ilunabarretan **estuparen** ispiluan zeruak islatzen zituen kolore magikoak. Berria - Mundua

estupefaziente *izond/iz* sorgarria.

Droga, **estupefaziente** eta sustantzia psikotropikoen trafikoa. Berria - Euskal Herria

Epaiak dio Cantatek **estupefazienteak** hartu zituela. Berria - Kultura

Ertzaintzak Abanto, Portugalete, Barakaldo eta Bilboko (Bizkaia) lau lagun atxilotu zituen ostiralean, Itziarko (Deba, Gipuzkoa) diskoteka batean **estupefazienteak** saltzea leporatuta. Berria - Euskal Herria

Polizia iturriek larunbatean esandakoaren arabera, **estupefazienteak** sartzeagatik atxilotu zuten. Berria - Euskal Herria

estupido *izond* ergela.

Halakoxe abagune batean ere Ortega-ren hitzaldian ez da guztiz falta kutsu arrazista, umore **estupidorik** ere ez. Joxe Azurmendi

Aitortu behar da, dei modu hauek, berdin da Baroja edo Unamunorenak, Espainian nortxo goititzera eta, hari nagi eta geldo irizten zaionez gero, euskaldunak han nagusi jartzera, inoren lotsa eragiten digutela gaur, erakusten den harrokeria **estupidoenaren** pareko lotsagabekeria besterik ez baitu irudi. Joxe Azurmendi

Gaur miradorean astoa ikusi dudanean, eta ikusi dudanean nik idatzitako zerrenda **estupido** hori, izugarrizko lotsa sentitu diat. Bernardo Atxaga

Zer **estupidoa**, zer ergela, ez nuen besarkatu, ez nion muxurik eman. Mikel Hernandez Abaitua

Arriskutsua da, **estupidoa** ez esateko, Alsaziakoa bezalako istilu partikular bat historia unibertsalaren paradigma gisa, are gizatasunaren funtsaren filosofia oinarrizkoaren arazo moduan esplotatu nahi izatea. Joxe Azurmendi

estupidokeria *iz* ergelkeria.

Intelektualki **estupidokeria** bat izateaz gain, deritzo Rortyk, holokaustoaren eta XX. mendeko biktima guztiekiko fribolitate bat da moralki, tragedia hori dena fikzioen historia batean banalizatuz. Joxe Azurmendi

estupro *iz* adin txikiko bat bortxatu nagusitasunaz edo engainuaz baliatuz.

Harrika hiltzen zituzten, berriz, adulterioa, **estuproa**, sodomia, bestialidadea praktikatzen zutenak, baita hilekoarekin larrua jotzen zuena ere, batik bat moroa edo judioa kristau batekin gurutzatzean. Patziku Perurena

Klodioren **estuproek** hartua zioten izpiritua, bizarge eta emekara ikusten baitzuen beti ere neba. Juan Garzia

Eta orduan izan zen izatekoa, **estuproa**, bene-benetako **estuproa**. Karlos Zabala

Estuproaren besoetara bultzatu ninduen Honorék. Joxan Elosegi

estura 1 *iz* estuasuna, larrialdia.

Maila hartan, bere kemen intelektual eta emozionala gehienbat harantz bideratuz, askabidea aurkitu bazuen ere, hantxe zirauten beste liskar, **estura** -are hildura- batzuek. Xabier Olarra

Isasiren ganbaratik irtenda, Basurtokoarenera jo nuen, **estura** batean, marinelen ahotsek akuilaturik. Edorta Jimenez

Ez neukan agureak erregutzen zidana betetzeko barrurik: zer esan behar nion emakumeari, zer egoera ikusiko nuen, zergatik behartu behar ninduten **estura** hartara? Anjel Lertxundi

Zerk sortua, ez dakit, baina **esturak** hartuta nengoen. Anjel Lertxundi

Oro har, zinez esan daiteke Maupassanten autoskopiatik, bere barne mundu **esturaz** betetik, direla sortuak. Josu Zabaleta

Hiru ipuin mota bereizi ohi dira Maupassanten fantasiazko ipuin hauen artean: **esturazko** ipuinak, betiere halako ondoez sentipen bat uzten dutenak; eromenezko ipuinak, protagonistak poliki-poliki erotuz doazenak; eta gauza bitxien ipuinak, aurrekoak bezain gogorrak ez direnak, baina hala ere gogoa biziki erakartzen dutenak. Josu Zabaleta

Neure beldur naiz! beldurraren beldur; nire gogoa asaldatzen zaidanean haren **esturen** beldur, izumen ulertezinezko sentipen izugarri horren beldur. Josu Zabaleta

Tiro haren eztandarengatik halako **estura** sartu zitzaidala bihotzean, ariman eta gorputzean, non uste bainuen nireak egin zuela, beldurrez hiltzeko prest. Josu Zabaleta

Lehen **esturekin** batera, jendearen buru-mekanismoak martxan jarri dira. Karlos Linazasoro

Horregatik diot halako esker ona Sandrori, **esturatan** jarri nauelako berariaz, hartan eta beste hainbat ekinbide halakotan, itxuraz baino ez baitziren zentzugabeak; eta gertuz dakit baliagarri izan zaizkidala gerora. Juan Garzia

Gizaki honi, Jainkoaren esaneko denari, eta bere **esturetan** erabat leial denari, Jaunak erantzungo dio, saritzat bere burua eskainiz. Joan Mari Lekuona

Tentaldiengatik urduri, **esturengatik** zapaldua, eraskotako etsaiengatik zauritua eta akitua. Joan Mari Lekuona

-Zure biriketako **esturarentzat** horma-belarraren ura duzu hoberena. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ehiza honetatik **estura** handi bat sortu ohi da, atsekabe sakona. Joan Mari Lekuona

Gizaki honek, horrela inguraturik dagoenean, hain **estura** sakona jasaten du, non Jainkoagana jasotzen baitu bere oihua esan ezinezko deiadarrez. Zergatik ez zidan estreinakoan erantzun, zergatik pasarazi zidan une batzuk lehenagoko **estura** krudel hura? Joan Mari Lekuona

Pentsamenduaren eta bihotzaren **estura** ikaragarri bat, gogoratzeak berak larriminezko ikarak eragiten dituena. Josu Zabaleta

Ai! nork ulertu behar dit nire **estura** nardagarri hau? Josu Zabaleta

Nire pentsamenduaren nahasmendu izugarriari diot beldur, batez ere, nire arrazoiari, ihes egiten baitit, **estura** larri misteriozko, ikusezin batek zirriborraturik, barreiaturik. Josu Zabaleta

Edo iraganeko zorionaren oroitzapena gaurko **estura** da, edo gaur diren agoniek, izan ahal izan ziren estasietan dute jatorria. Koro Navarro

Kordea galtzeko zorian zegoen Nora, barru iluna minez kiskaltzen, eta oinazeek sekulako **estura** batean harrapaturik. Anjel Lertxundi

Ulergarria benetan horrelako gizakiaren heroismoa, kanpotik hesiturik dagoen gizakiarena, barruko ahulezietan utziarena eta izpirituzko **esturek** zapalduarena. Joan Mari Lekuona

3 (hitz elkartuetan)

Sumatzen nituen haien bihotz **esturak**, haien azken zalantzak, haien soka lotzeko mugimenduak. Josu Zabaleta

Hura sufrimendua, hura bihotz-**estura**! Anjel Lertxundi

4 gune estua. ik **estugune**.

Baretu zen azkenik ekaitza, lasaitu ziren olatuak, eta belak berriro zabalduz aurrera jo zuten eta berehala atzean utzi Bahia Grande eta Magallanesen **estura** eta hurbildu Hornos itsasadarrera, espainiarrek aspaldi batez irekitako bideari jarraiki. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

bihotz estura (3); **estura bat** (3); **estura batean** (7); **estura eta** (3); **estura larri** (3); **esturarik gabe** (3); **halako estura** (3)

---

estutasun *(ETCn **2.277** agerraldi; orobat **estuasun** ETCn **666** agerraldi) iz* estua denaren nolakotasuna.

Aldiz, piknostiloak altueraren zortzi zatiko diametroa izango balu, kolomarteen itxitasunaren eta **estutasunaren** eraginez, oso itxura zarratua eta desatsegina hartuko luke tenpluak. Santiago Iruretagoiena

Gurdiko karga-sokak edo erromaletako uhalak ez baitziren oso egokiak izaten korapiloa estutu eta zintzurrari eman beharreko **estutasuna** emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hirian, berriz, pareta mehelinen altuera dela-eta, edota lekuaren **estutasunak** uzten ez duelako, leku ilunak izaten dira. Santiago Iruretagoiena

Xalotasun santuz jokatzen saiatzen zen beti, eta ez zuen onartzen lekuaren **estutasunak** bihotzaren arnasa zabala eragozterik. Askoren artean

2 larritasuna. ik **estura**.

Aurrean pasatutako **estutasuna** ekarri zuen gogora, une hartako lasaitasunaz gehiago gozatzeko. Ramon Saizarbitoria

Itxaronaldiak **estutasuna** areagotu besterik ez baitzidan egingo. Ramon Saizarbitoria

Beldurrak eta **estutasunak** ez zidaten irakurtzen utzi. Jon Muñoz

Hantxe aurkitzen zuten azkenean beren ordaina bizitza oso bateko **estutasun**, oinaze eta sakrifizioek. Xabier Montoia

Haien **estutasuna**! Gotzon Garate

- **Estutasunean** jarri nauzu. Patxi Zubizarreta

Lehenbailehen amaitzeko premiarik gabe eta misterioa argitu nahiaren **estutasunetik** libre. Ramon Saizarbitoria

Nik uste dut Europarako sailkatzea beti dela pozgarria, nahiz eta hurrengo sasoian Espainiako Ligan **estutasunak** igaro behar izan. Berria - Kirola

Lehen itzuliko **estutasunak** atzean utzi, eta jokalariak onena ematen hasi dira. Berria - Kirola

Barrenetxearen iritziz, makina-erreminta industria ohituta dago **estutasunei** aurre egitera. Berria - Ekonomia

Kolpetik, Adelarekin egin nuen topo aurrez aurre; aztoratu egin zen, eta "zu hemen, Joantxo?" galdetu zidan, **estutasunetik** irteteko edo. Juan Kruz Igerabide

Mikel Strogoff nora ezean zebilen hara eta hona, baina aise eta **estutasunik** gabe itzuliko zen bere bidera nahi zuenean, hiria ongi baino hobekiago ezagutzen zuen eta. Karlos Zabala

Estutasuna eta nahigabea besterik ez zen familia hartan! Karlos Zabala

Besotik heldu zion eta eztiki erakarri zuen; gero besarkatu egin zuen, estu, amodioak eragiten duen **estutasunez**. Patxi Zubizarreta

-Hi al haiz? -galdetu zuen, eta aurpegia zimurtu zuen, **estutasunez** beldurtuta bezala-. Anton Garikano

Idoiarekin haustea gogorra gertatu bazitzaidan ere eta egun askotan hondoa jota eta **estutasunez** beterik ibili banintzen ere, ez nintzen behin ere sentitu arbuiatua edo gorrotatua. Juan Kruz Igerabide

Azkenean **estutasunezko** intziriak eta poz basatizko deiadarrak erabat itzali ziren urrunean. Karlos Zabala

Ez letrarik, ez hipotekarik, ez hil-amaierako **estutasunik**. Patxi Iturritegi

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Jendea erlijio-gosez dagoenean, orduan jasan behar duten **estutasun** espiritual etsigarriak sutu egin ditzake, erlijio-kontsolamenduzko zainak etorkizunik gutxieneko meatik ateratzeko. Iñaki Mendiguren

Nola uler daitezke bestela, Euskaltzaindiak, ekaitz basaka eta galgarriak erasota bezala, azken garaietan bizi dituen **estutasun** ekonomikoak? Pello Salaburu

Hura ezkutuan gobernatzen eta garraiatzen pasatu omen zituen **estutasun** handienak. Ramon Saizarbitoria

Estutasun ederrean jarri nauk. Antton Olano

Horra: zure ugazabak baliatu nahi zuen **estutasuna** pasakorra zen -esan zuen, harro. Anton Garikano

Desagertu egin zitzaidan gure harremanaren etorkizuna istant hartan erabakitzen zela pentsatzeak eragiten zidan **estutasun** larria. Ramon Saizarbitoria

Kontu egiten ez baduk, hire lagun Bunburyk **estutasun** larrian jarriko hau egunen batean. Antton Olano

Halako batean, Quenuren irudia gogora etorri zitzaionean, **estutasun** hilgarri batek hartu zion bihotza. Karlos Zabala

Debaldeko **estutasunak**, dena den. Aingeru Epaltza

Bere baitako zokoren batean halako **estutasun** etengabe bat sumatu zuen, adierazezina, aurreko gaueko gogoeta garratzen lorratza. Lopez de Arana

Ondoren, Macarenari zuzendu zitzaion, hasierako **estutasuna** pasa balitzaio bezala. Joxemari Urteaga

4 (hitz elkartuetan)

Estutasun-erreka bana sortu zaio begietan. Imanol Zurutuza

Benetako enpatia behar da, **estutasun** egoera bat bizi duen horri eskua luzatzea. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aparteko estutasunik (6); **aparteko estutasunik** (6); **aparteko estutasunik gabe** (6); **aparteko estutasunik gabe** (6); **batere estutasunik** (4); **batere estutasunik** (4); **estutasun asko** (3); **estutasun batean** (3); **estutasun ederrean** (3); **estutasun eta** (3); **estutasun handirik** (5); **estutasun pasatu** (3); **estutasuna eta** (3); **estutasunak eta** (5); **estutasunean jarri** (5); **estutasunean jarri** (5); **estutasunetan jarri** (6); **estutasunetan jarri zuen** (3); **estutasunik ez** (3); **estutasunik ez** (3); **estutasunik gabe** (19); **estutasunik gabe** (19); **estutasunik gabe irabazi** (8); **estutasunik gabe irabazi** (8); **estutasunik jasan** (3); **estutasunik jasan** (3); **eta estutasun** (6); **eta estutasuna** (3); **eta estutasunak** (4); **eta estutasunetan** (3); **eta estutasunik** (5); **eta estutasunik** (5); **eta estutasunik gabe** (3); **eta estutasunik gabe** (3)

---

estutasuntxo *(corpusean **estuasuntxo** soilik) iz adkor* estutasun txikia.

Beti guardian egoten ohiturik nengoen honek, bi puntu topatu nituen agudo, asteburuko **estuasuntxo** hori askatzeko tamainakoak: goizero Donostiako Meteorologia Zentrora datuak bidaltzen nituenez gero, tarte hura aprobetxatuko nuen Jose Ignazio Usabiagari asteko iragarpena galdatzeko. Pello Zabala

---

estutu, estu(tu), estutzen **1** da/du *ad* estuago bihurtu, inguru osotik sakatu.

Zain urdinez beteriko esku bat **estutu** zuen, alkandoraren eskumutur gogor distiratsu batean bildua. Lopez de Arana

Eskua luzatu zuen, **estutu** egin nion. Koldo Izagirre

Florent haren dendara hurbiltzen zen noizik behinka, eskua **estutzera**. Karlos Zabala

Haren aurretik pasatzean, gela txiki beiradunean sartu aurretik, jaun haiek guztiek bostekoa **estutzen** zioten isilean, edontzi eta botilen gainetik. Karlos Zabala

Eskumuturrak palkoaren belus gorriaren gainean paratzen zituen, eskularru zuri txikiegiek pixka bat **estutzen** bazizkioten ere. Karlos Zabala

Ukabila **estutu** zuen, bai eta arrautza lehertu ere. Koldo Biguri

Gero, ukabilak **estuturik**, paparra atera eta drogerian sartu zen. Lopez de Arana

Orakuluak bizirik dagoela erantzunez gero, une berean txoriari lepoa **estutu**, eta hil egingo du; hilik dagoela erantzuten badio, berriz, bizirik erakutsiko dio. Juan Kruz Igerabide

Haren titiburua **estutu** nuen nire hortz artean, eta haren gorputza zurruntzen sentitu nuen, bizkarrarekin arku sinestezin bat eraikiz, eta luze erori zen, indarrik gabe. Juan Martin Elexpuru

- **Estutu** ipurdia, urdanga hori, **estutu** ipurdia! -eskatu zidan bat-batean, arnasestuka. Juan Martin Elexpuru

Bi adiskideek luzaz **estutu** zizkioten eskuak batak besteari, eta luzaz begiratu zioten elkarri, isilik, begietatik malkoak zerizkiela. Jose Morales

Txistu egiteari utzi eta arnasots bat jaulki zuen ezpainak **estutuz**. Lopez de Arana

Emakumeak masailak **estutu** zizkion eta, musu azkar bat ahoan emanda, harengandik askatu eta lasterka lau pisu igo zituen, ugerrez betetako eskaileretan gora.-Begiratu ere ez dute egiten neska horiek -esan zuen Emilek hortzak **estutuz**-. Lopez de Arana

Thatcherrek haren esku txiki eta lodia **estutu** zuen. Lopez de Arana

Beso sendo batek gerria **estutu** zion. Lopez de Arana

Bere kontra **estutzen** zuen orain, min eman nahian, umeen ankertasunarekin. Karlos Zabala

Txalekoa txukundu eta zapaten zenbait hauts-izpi musuzapiaz kendu ondoan aurpegia **estutu** zuen, kezka biziaren adierazgarri. Lopez de Arana

Malfoyren begi zurbilak **estutu** egin ziren, eta haserre alde egin zuen handik. Iñaki Mendiguren

Izeba Emilyren ahoa **estutu** zen irri izoztu bat osatuz. Lopez de Arana

Den-denek pauso bat atzera egin eta mutu begiratu zioten, beraien lanabesen kirtenak **estutuz**. Koldo Biguri

Eskaileretan behera gerrikoa **estutu** zuen. Lopez de Arana

Besarkatu eta **estutu** egin ninduen, arnasa etenarazteraino. Juan Kruz Igerabide

Zaldun honek baietsi zuen haur oso eder bat ikusi zuela ganbelan lotan, aita Frantzisko dohatsuak, bere bi besoen artean **estutuz**, lotatik iratzartzen zuela zirudiena. Askoren artean

Eskua hartu zidan eta bere esku artean **estutu** zuen, hitzik gabe. Monika Etxebarria

Hainbeste jendek **estutzen** zaituela ikusi eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu? Elizen arteko biblia

Gizonak eta emakumeak bultzaka sartzen ziren egurrezko tunel kirastuan, elkar **estutuz** eta zanpatuz. Lopez de Arana

Monika nire kontra **estutu** zen eta negarrez hasi zen. Joxean Agirre

Hamar minuturo gizon bat kubertara, zubira igota lemaren ardatzean ipinia genuen giltza ingelesa **estutzera**. Koldo Izagirre

Mahastietan ez da gehiago oihu eta kantarik; dolareetan ez da gehiago mahatsik **estutzen**. Elizen arteko biblia

2 da/du *ad irud/hed*

Harryren begiek behera so egin zuten, eta ikusi zuenak bihotza **estutu** zion. Iñaki Mendiguren

Harryk, bere ezkerretara begiratzean, barrua **estutu** zion zerbait ikusi zuen: begi-pare bat, ilunpetan dir-dir. Iñaki Mendiguren

Zirrara gero eta handiago batek **estutzen** zien eztarria. Karlos Zabala

Arnasa **estutu** zitzaion bisitariari; hitzak ahoan pilatu zitzaizkion, bata bestearen atzetik airera jalgitzeko prest, harrapakinarenganatz hegan abiatzen diren aztoreen antzera. Jose Morales

Behean, sotoko haize beltzak arnasa **estutu** zion urdai saltzaile ederrari. Karlos Zabala

Sarritan, larritasunak kirioak **estutu** eta ibiltzeko beharra izaten zuen. Karlos Zabala

Min itogarri batek **estutzen** zizkion saihetsak. Lopez de Arana

Bien bitartean santuak, bihotza **estututa**, lagunari esan zion jaiki eta begiratzeko. Askoren artean

Haize bafada bat bezalaxe sartu zen, aulki batean eseri, emozio bortitz batek arnasa **estuturik**. Josu Zabaleta

Gauean, ordea, esan zidan ez zitzaiola amodioa egitea ongi iruditzen aitaren gorpua oraindik bero zegoela, eta, beste askotan bezala, errespetatu egin nuen haren nahia, gure harremana **estutzeko** aukera hura galtzen uzteak pena eman zidan arren. Ramon Saizarbitoria

3 (adizlagunekin)

Naturaltasunez besarkatu eta emeki **estutu** zuen. Jose Morales

Pepponek gogor **estutu** zituen ukabilak. Koldo Biguri

Besteak, bat-batean gelditurik, eskutik heldu zion, eta eskua indarrez **estutuz**, ahopeka galdetu zion: [...]. Josu Zabaleta

Florin bat eskuan irmo **estutzen** nuela, pauso luzean joan nintzen Buckingham kaletik geltoki aldera. Irene Aldasoro

Ronek amorruz **estutzen** zituen Crabberen ukabil erraldoiak. Iñaki Mendiguren

Gehienetan ez zuen kantatzen, isilik joaten zen, hortzak gogor **estuturik** jatorri iluneko amorru, oinaze eta suhartasun baten eraginez, eta itsu-itsuan egiten zuen aurrera. Jose Morales

Horren zamak hain arin du **estutzen** eta hain gozo zauritzen, ezen berarengan haragi hila biziberritu egiten baita eta espiritu gaixoa indarrez betetzen! Askoren artean

Txitxikovekin erabat txoraturik, oso luzaz **estutu** zion eskua, eta sutsuki eskatu herrira bisita egitera joateko ohorea egin ziezaiola. Jose Morales

Manilovek ez zuen inolako asmorik gure protagonistaren eskuak askatzeko, eta hain sutsuki **estutzen** zizkion, ezen Txitxikovek ez baitzekien nola aterako zituen handik. Jose Morales

Emakumeak irribarre egin zuen ezpainak bere hortz luzeen kontra **estutuz**. Lopez de Arana

Gryffindorrekoak elkarren kontra **estutu** ziren hari pasatzen uzteko. Iñaki Mendiguren

Halabeharrez, bien ezpainak elkarren kontra **estutu** ziren. Lopez de Arana

Ondo **estututako** belakia bezala sentitzen zuen burua. Iñaki Mendiguren

4 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Erakusleihoa prestatzen ari ziren ondo jantzita, txalekoa soinean, galtza **estutuak**, eta apaindura luze liluragarriak atorraren eskumuturretan. Karlos Zabala

Koronelak, bularra astintzen zion dardara ukabil **estutuez** geldiarazi, eta berriro esan zuen: [...]. Jose Morales

Brisak kapelaren ertz **estutuaren** inguruko ilea harrotu eta lokietako izerdia lehortzen zion. Lopez de Arana

· Bere **estutua** tinkoa eta laburra izan zen. Bernardo Atxaga

Begira geratu zitzaigun, alkandora--lepoan zeraman tanta gorriz beteriko begizta beltzari **estutu** txikia ematen ziolarik. Anjel Lertxundi

Hark, orduan, doktore errukarriari azken esku-**estutu** bat emanez, irribarrez esan zion, gozo-gozo, haur gaizto bat kontsolatzeko egin ohi den bezala: [...]. Josu Zabaleta

• **5** da/du *ad* larritu, urduritu.

Öchler erabat **estutu** zen. Anjel Lertxundi

Kolpean Harryrengana jiratu zuen burua izeba Margek; Harryri bihotza **estutu** zitzaion. Iñaki Mendiguren

-Nik Florent dut izena, urrundik nator... -erantzun zion ezezagunak **estuturik**-. Karlos Zabala

-Ez zaitez **estutu**, Cassie, itzuliko da, ikusiko duzu. Lopez de Arana

-Ez **estutu**, James, utzi dena nire kontu. Lopez de Arana

Baina ez **estutu**. Lopez de Arana

Estutzen hasi zen, zangoak jada ez zituen lurrean hain sendo finkatuak nabaritzen, errebolberrari eusten zion eskua gero eta makalago zeukan, dardaraka hasteko zorian. Migel Angel Mintegi

Lisa ez zen haserretu; aitzitik, irribarre egiten zuen, eta haren irribarre ederrak gehiago **estutzen** zuen Florent bezperako amorru isilak baino. Karlos Zabala

Sethe begira jarri zitzaion, erne, trankil, prest onartzeko, askatzeko edo desenkusatzeko gizon **estutua**. Anton Garikano

-Esadak, arren! - **estutu** ninduen abadeak, haria galdua nuelako ustean. Edorta Jimenez

Kontuz artzain, eguerdi betean egarriak **estutzen** bazaitu eta zure abereekin batera Klitor ingurura hurbiltzen bazara. Santiago Iruretagoiena

Estutzen ninduen bakardade izugarritik ateratzeko premia larria. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahoa estutu (4); **are gehiago estutu** (4); **areago estutu** (3); **arnasa estutu** (8); **arte estutu** (3); **artean estutu** (15); **artean estutu du** (3); **artean estutu eta** (6); **asko estutu** (6); **aurka estutu** (6); **aurpegia estutu** (3); **baino gehiago estutu** (3); **barrua estutu** (4); **bat estutu** (13); **batek estutu** (3); **batez estutu** (3); **begiak estutu** (3); **bere kontra**

estutu (3); besoa estutu (3); besoetan estutu (7); beste estutu (3); bihotza estutu (13); bihotza estutu zitzaion (6); bostekoa estutu (7); bostekoa estutu eta (3); bularraren kontra estutu (9); burua estutu (5); elkarren kontra estutu (6); erabat estutu (4); esku artean estutu (3); esku estutu (3); eskua estutu (37); eskua estutu eta (3); eskua estutu nion (6); eskua estutu zion (7); eskua estutu zuen (5); eskuak estutu (12); eskuak estutu eta (4); eskuak estutu zizkion (3); estutu baitzuen (3); estutu barik (3); estutu bat (10); estutu bat eman (3); estutu bat emanez (3); estutu behar (22); estutu behar ditu (3); estutu behar izan (6); estutu beharko (13); estutu beharko ditu (3); estutu beharko du (3); estutu beharra (3); estutu beharrik (3); estutu dit (6); estutu ditu (9); estutu ditut (3); estutu du (23); estutu dut (5); estutu egin (56); estutu egin da (4); estutu egin ninduen (3); estutu egin zen (5); estutu egin zion (3); estutu egin ziren (5); estutu egin zituen (4); estutu egin zuen (4); estutu egiten (47); estutu egiten da (4); estutu egiten du (8); estutu egiten dute (5); estutu egiten zuen (9); estutu eta (133); estutu eta begiak (5); estutu eta estutu (6); estutu eta ez (3); estutu eta musu (3); estutu ez (5); estutu gabe (15); estutu gura (5); estutu horregatik (3); estutu ipurdia (5); estutu izana (3); estutu nahi (22); estutu nahi du (3); estutu nahi izan (5); estutu nahian (6); estutu ninduen (13); estutu nion (14); estutu nituen (16); estutu nizkion (3); estutu nuen (17); estutu ondoren (7); estutu zen (20); estutu zidan (15); estutu zidan eskua (3); estutu zion (37); estutu zion eskua (4); estutu zioten (10); estutu ziren (8); estutu zituen (67); estutu zituzten (14); estutu zitzaion (14); estutu zizkidan (3); estutu zizkion (6); estutu zizkion eta (3); estutu zuen (94); estutu zuen bere (3); estutu zuen eta (3); estutu zuenean (3); estutu zuten (14); estutu zutenean (3); eta eskua estutu (3); eta estutu (43); eta estutu egin (12); eta estutu egiten (11); eta ezpainak estutu (4); eta gogor estutu (4); eta hortzak estutu (3); eta indarrez estutu (4); eta ukabila estutu (4); eta ukabilak estutu (4); ez estutu (15); ez zaitez estutu (5); ezpainak estutu (26); ezpainak estutu eta (6); ezpainak estutu zituen (13); fuerte estutu (3); gehiago estutu (25); gehiago estutu zuen (6); gehiegi estutu (7); gehiegi estutu gabe (3); gehixeago estutu (4); gerria estutu (3); gerrikoa estutu (8); gerrikoa estutu zuen (4); gobernua estutu (3); gogor estutu (23); gogor estutu beharko (3); gogor estutu eta (3); gogor estutu zuen (3); gorputzaren kontra estutu (7); hainbeste estutu (3); handiz estutu (3); harremana estutu (3); harremanak estutu (5); harryri bihotza estutu (3); hartu eta estutu (4); hormaren kontra estutu (3); hortzak estutu (60); hortzak estutu behar (5); hortzak estutu eta (24); hortzak estutu nituen (3); hortzak estutu zituen (11); hortzak estutu zituzten (7); indar handiz estutu (3); indarrez estutu (8); indarrez estutu zuen (3); indartsu estutu (3); inguratu eta estutu (3); kontra estutu (61); kontra estutu du (4); kontra estutu dut (3); kontra estutu eta (4); kontra estutu nuen (3); kontra estutu zen (7); kontra estutu zion (3); kontra estutu ziren (3); kontra estutu zituen (5); kontra estutu zuen (11); korapiloa estutu (3); lepoa estutu (7); markagailua estutu (7); markagailua estutu zuen (4); masailak estutu (3); nire kontra estutu (9); nola estutu (4); ondo estutu (5); partida estutu (4); pixka bat estutu (4); tinko estutu (4); ukabila estutu (8); ukabilak estutu (29); ukabilak estutu eta (6); ukabilak estutu nituen (4); ukabilak estutu zituen (13)

arnasa estuturik (3); arnasa estututa (3); artean estuturik (3); artean estututa (4); artean estutuz (3); bat estutuz (4); begiak estututa (3); bihotza estututa (5); bularraren kontra estutuz (5); eskua estutuz (6); eskuak estutuz (3); estuturik eta (3); estututa itolarria (3); estututa itolarria eragin (3); estututa zeuden (3); estututa zeukan (3); estututa zeuzkan (3); estutuz eta (8); estutuz gero (6); eta estutuz (3); eta hortzak estuturik (3); ezpainak estuturik (6); ezpainak estututa (11); ezpainak estutuz (3); gogor estutuz (4); hortz estutuen (3); hortzak estuturik (16); hortzak estututa (17); hortzak estutuz (13); indarrez estutuz (5); kontra estuturik (13); kontra estututa (9); kontra estutuz (17); ondo estututa (4); tinko estutuz (4); ukabilak estuturik (4); ukabilak estututa (3); ukabilak estutuz (9)

alde guztietatik estutzen (3); amorruz estutzen (3); are gehiago estutzeko (3); arnasa estutzen (6); arnasa estutzen zitzaion (4); artean estutzeko (3); artean estutzen (5); arteko harremanak estutzeko (7); aurka estutzen (4); bat estutzen (15); bat estutzen zuen (4); batek estutzen (5); beharrean estutzen (3); beso artean estutzeko (3); bezala estutzen (7); bidea estutzen (3); bihotza estutzen (11); bostekoa estutzen (5); bostekoa estutzerakoan (3); bularraren kontra estutzen (8); burua estutzen (4); edo estutzen (3); eskua estutzen (12); estutzearen alde (4); estutzeko asmoa (3); estutzeko aukera (4); estutzeko eskatu (3); estutzeko eta (5); estutzeko gai (3); estutzen ari (33); estutzen ari da (10); estutzen ari zela (4); estutzen ari zen (4); estutzen aritu (3); estutzen dio (5); estutzen dira (3); estutzen ditu (9); estutzen dituzte (4); estutzen dizu (3); estutzen du (15); estutzen du gorputza (3); estutzen duela (5); estutzen duen (11); estutzen duena (3); estutzen dut (4); estutzen dute (6); estutzen eta (20); estutzen ez (8); estutzen gintuen (4); estutzen hasi (12); estutzen ninduen (8); estutzen nintzen (3); estutzen nion (3); estutzen nuen (6); estutzen saiatu (3); estutzen saiatuko (3); estutzen saiatzen (5); estutzen zen (6); estutzen zidan (6); estutzen ziola (9); estutzen zion (18); estutzen ziren (8); estutzen zituela (3); estutzen zituen (18); estutzen zituen bitartean (3); estutzen zituzten (4); estutzen zitzaion (5); estutzen zizkion (6); estutzen zuela (9); estutzen zuen (31); estutzen zuten (8); eta estutzeko (3); eta estutzen (13); eta gehiago estutzen (5); ez estutzeko (3); ezpainak estutzen (8); gehiago estutzea (3); gehiago estutzeko (7); gehiago estutzen (18); gehiago estutzen zuen (3); gehiegi estutzen (7); gogor estutzen (12); guztietatik estutzen (3); harremana estutzeko (7); harremanak estutzea (5); harremanak estutzearen (3); harremanak estutzearen alde (3); harremanak estutzeko (11); harremanak estutzen (4); heldu eta estutzen (3); hersten eta estutzen (3); hortzak estutzen (8); indarrez estutzen (3); kontra estutzen (32); kontra estutzen du (4); kontra estutzen ziren (4); kontra estutzen zuen (7); lepoa estutzen (4); lokarriak estutzen (4); nola estutzen (8); tinko estutzen (3); zerbaitek estutzen (3); zintzurra estutzen (4)

---

estutuka *adlag* estutzen.

Sugandilen moduko gorputz zuriak uretan bihurrika, bultzaka, lasterka, **estutuka** ... Xabier Mendiguren Elizegi

---

estutxe *iz* kutxatila eskuarki zurruna, zerbait gorde edo babesteko erabiltzen dena.

Esnagailu bat atera du **estutxetik**, eta eskumuturreko erlojua kontsultatu ondoren orratzak mugitu eta korda eman dio. Pello Lizarralde

Gorbata laxatu du makurtu aurretik, eta azken atorra eta aldagarri garbiak eta **estutxe** berde karratu bat hartu ditu maletatik. Pello Lizarralde

Takoien gainean zuen ibiltzeko tankera deserosoak [...], poltsa eskuetan eramateko zuen modu dotoreak (biolinaren **estutxea** zeramala esan zitekeen) edo bere sorbalda beti biluziak mugitzeko erak nahastu egiten ninduten. Joxean Agirre

Bere pintura-**estutxearen** gakoa beharrezko baino gogorrago itxi, eta bazirudien gako hark zirkulu berean batu zituela betirako pintura-**estutxea**, belardia, Bankes jauna eta bihurri basati hura, Cam, korrika batean handik barrena igaro zena. Anton Garikano

Hori egiten ez badu, proposatzen ari den elkarrizketa eta akordioa **«estutxe** hutsa» besterik ez direla izango. Berria - Harian

---

estutxo **1** *izond adkor* estu samarra.

Ez da aski orain Botere hari **estutxoak** bilakatu zaizkion harresi zaharrok eraistea. Joxe Azurmendi

2 (adizlagun gisa)

Jantzia deseroso samar zetorkion sorbaldan, eta **estutxo** sentitzen zuen gerrian, baina, gainerakoan, gorputza estilizatzen zioten soinekoaren marra urdin-zuri bertikalek, Nora zena baino neska garaiago baten itxura eraginik. Anjel Lertxundi

Estutxo baina garaiz hegazkina hartzeko. Urtzi Urrutikoetxea

Tarteka bakarren batzuk **estutxo** uztartzen dira, elkarri gozo iritzirik, baina ez gehiegitan, ez baita jolasa sobera koipetzerik komeni. Iñaki Segurola

---

estutzaile *izond* estutzen duena.

Sethek eta Denverrek berehala erabaki zuten jazarpen harekin amaitzea, nola eta mamu **estutzaile** hari dei eginez. Anton Garikano

---

estutze *iz* estuago bihurtzea, inguru osotik sakatzea.

Ezin mugiturik geldituta arrain saltzaile bat atera egin zen **estutze** hartatik, ukabilak airean, iduna zantarkeriaz hanpatua. Karlos Zabala

Jarraian bere esku bero, haragitsu eta apur bat izerditsuaren **estutze** lagunkoia sentitu nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Nemo kapitain ausartak berak ere ez zuen lortuko, ordea, marinel dohakabea garro haien **estutze** indartsutik askatzea. Imanol Zurutuza

Diskojogailuaren platera biraka ari den bitartean, itxurazko **estutze** edo zabaltze mugimendu bat sumatzen da, espiralaren zentzuaren arabera. Josu Zabaleta

Baina beste kontu bat da Auzitegi Nazionaleko magistratuaren erabakiek zenbateraino egiten dioten traba PSOEko gobernuari, edo zenbateraino den Zapateroren estrategiaren lagungarri, ezker abertzalea ia arnasarik gabe uzteraino **estutze** hori. Berria - Euskal Herria

Irudiak, ordea, hiru dimentsiotako errealitatea bi dimentsiotara proiektatuz gauzatzen direnez, **"estutze"** horretan informazio puska bat galtzen dela esan nahi du horrek. Josu Zabaleta

---

estuxe *izond* apur bat estua.

Berehala ohartu nintzen ez nintzela Rue des Archivesen: zerbitzurako ate hark karrika **estuxeago** batera ematen zuen. Alberto Ladron Arana

---

estuxko *adlag adkor* estu samar.

-Estuxko egonen ginatekeela. Fernando Rey

---

estzeptiko ik **eszeptiko**.

---

esvastika ik **esbastika**.

---

eszedente *iz* soberakina.

Alor asko bertan behera utzi behar izan dituzte **eszedenteak** direla eta. Berria - Harian

Horretarik **eszedenteak** ditugu, ordea. Hasier Etxeberria

---

eszedentzia *iz* aldi baterako bere lana uzten duen funtzionarioaren egoera.

6.741 langilek eskatu zuten **eszedentzia** edota lanaldi murrizketa etxeko betebeharrei heltzeko. Berria - Ekonomia

Gutxieneko **eszedentzia** edo lana uzteko baimena urtebetetik lau hilabetera jaitsiko da. Berria - Euskal Herria

Bideo-zaintza, **eszedentziak** edota ordezkapenak izan dira, besteak beste, Jaurlaritzak ezarritako neurriak. Berria - Euskal Herria

Kaleratu aurretik langileei bost urteko **eszedentzia** proposatu zitzaien, baina langabezia saria jaso gabe. Berria - Ekonomia

Proiektuari denbora gehiago eskaini ahal izateko lanean **eszedentzia** eskatzeko asmoa du. Berria - Euskal Herria

Handik hilabete eta erdi inguru izango zen, bat edo beste asaldatuta hurbildu zitzaidanean, kalean barra-barra entzuten zuelako, "urtebeterako **eszedentzia"** eskatu nuela nire anaidi eta fraileengandik apartatzeko. Pello Zabala

Eszedentzia hartzea ere pentsatzen ari da. Berria - Harian

Danimarkako Jyllands-Posten egunkariko kultura arduradunari **eszedentzia** eman ziotela jakinarazi zuten atzo. Berria - Mundua

Eszedentzia baten pean mozorrotu zuten dena. Harkaitz Cano

Iaz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egin ziren **eszedentzia** edo lanaldi murrizketa eskaera guztien %6,7 besterik ez ziren izan gizonek egindakoak. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzak zenbait diru laguntza xedatu ditu **eszedentzian** edo lanaldiaren murrizketan daudenentzat. Berria - Euskal Herria

Irakaskuntzaren alorrean ordezkapenen, **eszedentzien** eta lekualdatzeen inguruko erreklamazioak dira nagusi. Berria - Euskal Herria

---

eszelentzia *iz* gorentasuna.

Maite al duk bizitza? "Bai, **Eszelentzia"** zen erantzuna, eta alde egiten genuen. Matías Múgica

Eszelentziak nire kondena eman zuenean, gauza harrigarria gertatu zitzaidan, barregarria. Matías Múgica

-Zure **Eszelentziak** hala esaten badu Matías Múgica

---

eszena 1 *iz* antzezlan edo film baten zatia, antzezlari berek antzezten dutena; eguneroko bizitzako gertakaria, kanpotik bezala ikusten dena.

Eszena hitza bera nahi bezain anbiguoa da, gainera, esanahi asko baititu: egiazko espazio bat, antzezteko lekua, metonimiaz ekintza bera gertatzen den imajinaziozko lekua, **eszenan** jokatzen den ekintza dramatikoaren zati bat (ekintza zati oso bat, beraz), eta, horrenbestez, iraupen jakin bat ere bai. Josu Zabaleta

Nonbait ikusia dut, arte liburu batetan edo, **eszena** hori: langile talde bat manifestatzen ari da, iduriz haserre direla gizonak eta emazte gazte bat daukatelarik gidaritzat. Piarres Aintziart

Egunen batean hau bezalako **eszena** bat antzeztuko diat. Fernando Rey

Eszenak bizitzaren xehetasun guztiak biltzen zituen: kaleko hotsak eta usainak, zuhaitz landatu berrien itzal meheak, auto bizkorren burrunba, eguzkiaren distira eraikinetako metalaren eta kristalaren kontra. Iban Zaldua

Usandizagari erabateko garaipena ekarri zion obra hura **eszenara** eraman zuen Konpainia bera ere lehen mailakoa zen. Askoren artean

Antzezleak adi-adi jarriko dira hastera doan **eszenarako** . Josu Zabaleta

Ezabatuta bezala dauka gertatutakoaren zehaztapena edo, behintzat, lanbro artean galdurik bezala oroitzen du **eszena** . Hasier Etxeberria

Eszena apaingela dotore batean gertatzen da. begiak ixten baditut edo sabaiari nolabait tinko begiratzen badiot, **eszena** berreraiki dezaket: zuhaitz bat urrutian, forma ilun eta mozkotea nire gainera heldu da lasterka. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neure begiok dadoen **eszenaren** lekuko izan direla. Anjel Lertxundi

Guardiako sendagilea **eszenan** sartzearekin batera hasten da gauaren bigarren zatia. Joseba Urteaga

Triestera iritsi nintzenetik bizi izandako hainbat **eszena** ekarri zidan musikak gogora. Anjel Lertxundi

Bere haurtzaroko **eszena** bat ikusten du arestian pinudiak edo zerua ikusi dituen bezain gardenki. Bernardo Atxaga

Gizonak, kortesiaren distantzia galdu gabe baina adeitasun natural batez, guztiz familiarra egin zaidan **eszena** bat marraztu dit zeren bila nabilen adierazi bezain pronto. Anjel Lertxundi

Felliniren film batetik aterea dirudien **eszena** . Anjel Lertxundi

Haurra, neskatila eta liburua elkartzen **dituen** eszena hau han eta hemen ageri da Hugoren obran. Koldo Izagirre

Eszena hauek segundo gutxi bezain luze batzuetan etorri zitzaizkion burura. Iñaki Zabaleta

Mundiala izan zen bonba fetidoen **eszena** ! Joan Mari Irigoien

Negarra eragiteko **eszenak** , ikusi hutsarekin lotsa ematen zutenak. Fernando Rey

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hoteleko gela batean gertatzen den **eszena** arrunta, zeinean bera zetazko izaretan zegokeen eta ni botila hotz bat xanpain eta sakeletan kristalezko kopa bi nituela azalduko nintzen. Ramon Saizarbitoria

Film luze hartako **eszena** gogoangarrienetako bat gertatzen zen bukaera aldera, japoniarra biktima, erdi hilik zegoen biktima, ikustera hurbildu zenean. Joxan Elosegi

Euskal ezaugarrien epifania eman nahi zaigu garo-usaina darion **eszena** bukoliko horren bidez. Anjel Lertxundi

Victoriak arrazoi zuen Rossetti, sortzailea baino gehiago, ilustratzailea zela esatean, **eszena** tragiko hori -elizkizunetan poemak zerraldoan sartzekoa- dozena bat urte lehenago sortu baitzuen bere arreba Christina Rossetti idazleak. Ramon Saizarbitoria

Badirudi gertu daudela **eszena** morbosoaz gozatzeko. Patxi Iturritegi

Bitxia da goiza eta bitxia goizak dakarkidana [...] gauean hotelera bidean ikusi nituen **eszena** fellinianoekin alderatuta. Anjel Lertxundi

Madarikatua, **eszena** kitsch baten tranpa sentiberan erortzen ari naizela esaten ari zaidan ahotsa. Anjel Lertxundi

Guduak eta **eszena** militarrak gai hartuta egin zituen margo lanengatik da ezaguna. Karlos Zabala

Agindu horiei jarraituz, ilargi giroko **eszena** misteriozko bat eratuko da. Josu Zabaleta

Lorategian amarekin izandako **eszena** ikaragarria antzeztu behar duzu! Josu Zabaleta

Gainera, ama-semeek ezin izan zuten elkarrekin hitz egin Zabedieroko kanpamentuko **eszena** zoritxarrekoaren ondotik. Karlos Zabala

Nabarmena zen kontrolpean eusten ari zela **eszena** desatsegin bat antzezteko arriskuari. Anjel Lertxundi

Eszena samur baten erdian, ni, gala-soineko beltz berria jantzita. Anjel Lertxundi

Nadia, izu-laborrian baina konfiantzaz beterik era berean, **eszena** beldurgarri horri begira dago, halako mirespen bat begietan. Karlos Zabala

Bego, bada, bere horretan, orain lotsatu egiten banau ere **eszena** gozo horrek, bertako flash-back baten apunte eta guzti. Anjel Lertxundi

Ana Bolena datorkit gogora, **eszena** lazgarri hura, harengana doazenean Enrike ez-dakit-zenbagarrenak lepoa mozteko agindu duela esatera. Karlos Zabala

Eszena eta sentsazio zehatz batzuk, hari fin bakar batez loturik. Anjel Lertxundi

Halako haur-begirada errukibera bat zeukan, ataka hartatik libratu behar zuen heroiak, nik alegia, galtzak galdu izan balitu bezala filmeko **eszenarik** goratsuenean. Anjel Lertxundi

Hortxe eteten da amaren eta nire arteko **eszena** itxuraz hunkigarria. Anjel Lertxundi

Badira anekdotak, badira kantak, hitz jokoak, foto zaharrak, liburuen aipuak eta literatura kezkak, denborako usadioak, solasaldi arruntak, familiako **eszenak** . Pablo Sastre

Bezperako **eszenek** zurrunbilo baten gisan asaldatzen zuten bere burua. Iñaki Zabaleta

Gogoan dut txikitako **eszena** bat. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bat-bateko bertsolaritzak, **eszena** -artea ere baden aldetik, gogoa zabal jokatu behar du dramaturgia berrien ekarrien aurrean, ekarri interesgarriak onartu eta bere eremuan esperimentatzeko moduan egon dadin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sartuko dira, **Eszena** -zuzendaria agurtu lehendabizi, eta gero elkar agurtuko dute, egunonak opaz. Josu Zabaleta

Eszena -laguntzailea lasterka aterako da, eta handik gutxira itzuliko da berriro, orri mordo batekin, eta Gogorarazleari emango dizkio. Josu Zabaleta

Ikusleek jasota aurkituko dute agertokiko oihala, antzokian sartzen direnean, eta agertokia bera ere, egunez bezala, ez **eszena** tresnarik ez **eszena** hegalik, batere gabe, ia ilunpean eta hutsik, ikusleek, hasieratik bertatik, prestatu gabe dagoen ikuskari baten irudipena izan dezaten. Josu Zabaleta

Atzeko bazter batetik **eszena** gaietako ohol batzuk hartu, aurrealdera etorri eta, belauniko jarririk, iltzez josten hasiko da. Josu Zabaleta

Jean-Louis Schéfer-ek, historiako segida-ordena atzekoz aurreratuz, antzerkiko **eszena** -antolamendu bat balitz bezala aztertzen zuen XVI.mendeko koadro bat. Josu Zabaleta

Hiru eratako **eszena** -motak daude: bata tragikoa deitzen dena, bestea komikoa, eta hirugarrena satirikoa deitzen dena. Santiago Iruretagoiena

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bilboko kale **eszenekin** batera, badira Ezkerraldeko meatzetan ateratako erretratuak eta Arratia aldean egindakoak. Joseba Sarrionandia

Izan ere, Sorollaren koadro asko hondartza- **eszenak** dira. Unai Elorriaga

Maisua txundituta gelditzen zen, hitzik gabe, aktore bikain haien heriotza **eszenaren** aurrean, eta, gainera, lepoa eta alkandora orbanez beteta joaten zen etxera. Pello Lizarralde

Bitartean nire emazte ohiaren eta putakumearen arteko laztan- **eszenak** aurrera jarraitzen zuen, aldaketarik gabe. Iban Zaldua

Esku batean kopa bat, liburu bat bestean, jakingosez beterik irakurtzen du amodio **eszena** bat. Patxi Zubizarreta

Behin gure amaren jelosia **eszena** bat piztu zen. Pello Lizarralde

Haserrealdi eta malko- **eszena** etengabeak gogoratzen ditut, baina hitzak ez. Joseba Urteaga

Eta has bihartik pintatzen, ehiza **eszenaren** bat ahal baduk... iloba eta biok Pisarat goazen bitartean. Joan Mari Irigoien

Sakrifizio- **eszena** bat. Joseba Urteaga

Eszena txikiak antolatu zituen bat-batean, elkartze- **eszenak** , adiskidetze- **eszena** pozezko eta hunkigarriak. Ander Irizar

5 antzoki batean, eszenatokia.

Teatroaren beheko partean geratzen diren eta eskaileren norabideak markatzen dituzten angeluak zazpi izango dira; beste bost angeluek **eszenaren** antolamendua eratuko dute. Santiago Iruretagoiena

Eszenan agertzeko halako beldurra edo ikara sentitzen du, segundo batzuetakoa izaten dena eta **eszenara** agertzeaz bat desagertzen dena. Ana Urkiza

6 zenbait lagunek parte hatzen duten gertakari baten irudikapena.

Itxaron, antola dezagun **eszena** : Eugeni igo dadila zure bizkarrera, madame; lepotik helduko dizu, emakumeen bizkarrean joaten diren ume horiek bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Triestera iritsi nintzenetik bizi izandako hainbat **eszena** ekarri zidan musikak gogora. Anjel Lertxundi

Bai, guztiz oroitzen dut orain **eszena** hura [...] eta oroitzen dut bazkal aitzin izan zela, eta ama ere, halakoetan ohi ez bezala, ondoan izan genuela egun hartan. Joan Mari Irigoien

Vitruviok erromatarren horma-pintura artistikoaren eboluzioa ematen du, marmolen imitazio hutsa zen antzinakoenetik hasi eta **eszena** eta paisaien irudikapen modernoeneraino iritsiz. Santiago Iruretagoiena

Bai baitzeuden dekoratuak **eszena** hauentzat; zuhaitzak han hazten; loreak; argi jakin bat; irudi bakar batzuk. Anton Garikano

Iruditu zitzaidan erlijio-kromoetako **eszena** horietako bat osatzen genuela. Anjel Lertxundi

Rembrandt-en edo Caravaggioren koadroetan irudikatzen diren itzalen eta argien arteko kontrastea, esate baterako, askoz biziagoa da egiazko **eszena** batean izango litzatekeena baino. Josu Zabaleta

7 (izenondoekin)

Haiek beren bidetik zihoazela, morroiak eta biok geureari ekin genion, urroztarren bordarantz, non ikusi bainituen behin batean Maddalen eta osaba Joanikot, amoriozko **eszena** eder hartan. Joan Mari Irigoien

Ezin igaro daiteke hiru dimentsiotako **eszena** batetik bi dimentsioko irudi batera informaziorik batere galdu gabe. Josu Zabaleta

Berpizkundea bitarteko arte kristauak, adibidez, "formula" ikonografiko berak erabiltzen ditu etengabe, pertsonaia sakratuak irudikatzeko ez ezik baita **eszena** kanonikoak irudikatzeko ere. Josu Zabaleta

Zine mutuko **eszena** barregarri bat iruditu zitzaidan.Irakurri berriro eta begiratu zein zorrotz eta gordin deskribatzen dituen gerrako **eszenak** eta gerrak sortarazten dizkion egoera psikologikoak. Anjel Lertxundi

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eszena -antolamenduko elementuak izaten dira estilo bat eratzean gehien nabarmendu ohi direnak. Josu Zabaleta

Haien bizitzak **eszena** herrenkada batean agertu zitzaizkion; bata egunsentian, eskaileretan. Anton Garikano

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bikain! Hona hemen malko **eszena** bat! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jazarraldi eroak, tiroketak, sute-txikizioak, mutilazio gogorrak eta heriotza- **eszenak** segundo batzuetan bene-benetako bihurtu, eta sekulako abailan pasatzen zaizkio gogamenetik. Xabier Olarra

10 haserrezko-edo sentimen baten adierazpena, eskuarki gehiegizkoa edo itxuragabekoa.

Ez zaizkit **eszenak** egiten dituzten emakumeak atsegin -esan nuen. Joxean Agirre

11 *irud/hed*

Aurrean nuen **eszenari** begiratu nion -etxeari berari, jabetzaren paisaje bakunaren ezaugarriei, horma biluzei, leiho begi-huts ziruditenei, ihi ilara bakanei, eta zuhaitz iharren enbor zuri urriei-, arimako sentipen guztiz erori batez. Koro Navarro

Antzinako zentzumenetan, usaimena izango zen ziur asko eboluzioaren **eszenara** agertzen lehena. Irene Aldasoro

Ez nuen, ez, **eszena** bat egiteko asmorik txikiena! Matías Múgica

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

antzeko eszena (3); **arteko eszena** (5); **azken eszena** (4); **azkeneko eszena** (3); **bai eszena** (4); **baina eszena** (5); **bateko eszena** (3); **bateko eszena bat** (3); **bere eszena** (3); **beste eszena** (8); **beste eszena batzuk** (3); **bi eszena** (7); **bilbao eszena** (5); **bilbao eszenak** (3); **da eszena** (10); **da eszena zuzendaria** (3); **den eszena** (11); **den eszenaren** (6); **dira eszena** (3); **du eszena** (6); **duen eszena** (5); **dut eszena** (5); **edo eszena** (4); **egiazko eszena** (3); **eszena antolamendu** (3); **eszena antolamenduaren** (3); **eszena bat** (54); **eszena batean** (6); **eszena batek** (3); **eszena baten** (5); **eszena batzuk** (13); **eszena bera** (4); **eszena berritu** (3); **eszena edo** (3); **eszena eta** (8); **eszena gainean** (11); **eszena gaineko** (3); **eszena gehienak** (3); **eszena guztia** (6); **eszena guztiak** (3); **eszena haiek** (4); **eszena haren** (9); **eszena hark** (6); **eszena hartan** (8); **eszena hau** (6); **eszena hori** (15); **eszena horrek** (6); **eszena horren** (4); **eszena hura** (35); **eszena ikusi** (3); **eszena labur** (5); **eszena labur hura** (3); **eszena oso** (3); **eszena zailak** (3); **eszena zen** (3); **eszena zuzendaria** (37); **eszena zuzendariak** (11); **eszena zuzendariari** (8); **eszenak dira** (3); **eszenak eta** (6); **eszenako albo** (5); **eszenan agertu** (3); **eszenaren bat** (3); **eszenaren eta** (4); **eszenaren idazkera** (3); **eszenaren idazkera nozioak** (3); **eszenaren ondoren** (3); **eszenari begira** (7); **eszenarik izan** (3); **eszenen arteko** (3); **eta eszena** (35); **eta eszena batzuk** (3); **eta eszena gainean** (4); **eta eszena labur** (4); **eta eszenak** (6); **eta eszenako** (5); **eta eszenaren** (3); **ez eszena** (4); **filmeko eszena** (4); **gertatzen den eszena** (3); **giroko eszena** (3); **hain eszena** (3); **hainbat eszena** (5); **hasierako eszena** (3); **hondartzako eszena** (4); **hurrengo eszena** (3); **hurrengo eszenan** (4); **ikusmenezko eszena** (3); **izandako eszena** (4); **lehen eszena** (3); **nuen eszena** (4); **zaidan eszena** (3); **zen eszena** (8); **ziren eszena** (3); **ziren eszenak** (3); **zituen eszena** (3); **zuen eszena** (4); **zuten eszena** (3)

---

eszenaka *adlag* eszenaz eszena.

Eszena bakoitzak osagai bat edo biko ardatza dauka; pertsonaiek, aldiz, bost osagaiak nahasten dituzte **eszenaka**. Xabier Paya

---

eszenaratu, eszenara(tu), eszenaratzen *(orobat **eszeneratu** g.er.)* da/du *ad* eszenara eraman.

Bere obrak berriz **eszenaratuko** dira Frantziako aretoetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hori guztia, gainera, guretzat paradoxikoa den testuinguru batean, aristokraten arteko botere-borroka eta zilegitasun-jolasa Biltzarrean **eszenaratzen** baitziren garai bortitz hartan. Askoren artean

Obra estimatu eta goretsia da *Les Contes d'Hoffmann*, baina **eszenaratzen** zaila, Zer nahi duzu nik egitea Frantziatik komedia on bat iristen ez bazaigu, eta Pirandelloren antzerkiak **eszenaratu** beste erremediorik ez badugu. Berria - Kultura

Adosturiko transferentziak ukatu, Egin itxi, presoak legez kontra sakabanatu, epaiketa politikoak **eszenaratu**, zigorra bete eta gero presoak ez askatu, etc. Joxe Azurmendi

Gazte garaiko iraganarekin hauste hori behin eta berriz jokatu zuen aurrerantz ere bere burua **eszenaratzean**. Josu Zabaleta

Zoritxarrez, ez da gurera ailegatzen palestinarren egoera deskribatzen duen antzezlanik, eta horren ordez garai batean zapaldua izan zen beste herri batek aukera guztiak ditu naziengandik jasandako izugarrikeriak behin eta berriro pantailaratu eta **eszenaratuak** izateko. Berria - Kultura

---

eszenaratze *iz* eszenara eramatea.

Antzezleek egiten duten **eszenaratze** hau lehenengo unetik beretik ikusiko da bestelako gauza dela, nahiz eta parodia baten antzik ere batere ez izan; garbian egindako kopia baten itxura izango du, nolabait. Josu Zabaleta

Ziur nengoen hura guztia, Eugeniaren jolasa alegia, nire oharraren **eszenaratzea** zela. Ramon Saizarbitoria

2002an izan zen obraren azken **eszenaratzea**. Berria - Kultura

Hik egindako plana ona zuan, akatsik gabe funtzionatzeko modukoa, baina oreina behar zian agian; **eszenaratzea** hondatua zenez, hik arma jaitsi huen. Xabier Olarra

Lajosi inork ez zion bizkarra ematen, egiten zituen **eszenaratzeak** bat-bateko ezustekoz beteta egoten baitziren. Ander Irizar

Gérard Desarthe-k Hamleten lekua du Shakespeareren antzerki-lan horretaz Patrice Chéreau-k egin duen **eszenaratzean**. Kolore distiratsuekin eginiko antzezpenak dira nagusiki, muturreko egoeren **eszenaratzeak**. Josu Zabaleta

Beste kontu bat da nola gauzatu den hori guztia **eszenaratze** eta interpretazioaren aldetik. Berria - Kultura

Eszenaratzeari dagokionez, soiltasuna da eszenako osagai nagusia. Berria - Kultura

Euskaldunara bildu zen jendetzak txaloekin adierazi zuen atsedenaldian eta amaieran gustukoa izan zuela ikusi eta entzun zuen sasiekialdeko **eszenaratze** exotikoa. Berria - Kultura

Seppuku izeneko obran Yukio Mishima japoniar idazlearen bizitza eta obra jasotzen dira **eszenaratze** garaikide baten bidez. Berria - Kultura

Inprobisatutako **eszenaratze** ahalegin alferrikako horren komedia. Josu Zabaleta

---

eszenario *(ETCn **225** agerraldi) iz* eszenatokia.

Desberdinak ziren pertsonaiak, eta desberdinak leku izenak eta **eszenarioak**; gainerako guztia, fabula barne, berdintsua zen. Bernardo Atxaga

Zain bat lehertuko ahal zaik, pistolero madarikatua! -erantzun dio Patxik, eta **eszenariotik** salto eginik Dabiden bila joan da. Patxi Zubizarreta

Hamar metroko **eszenarioaren** gainean mikrofono bat jarriko du. Berria - Kultura

Euskal Herria 2010 egitasmoan, geroari buruzko **eszenarioak** lantzen hasi zirenean, berehala sortu zen kezka proposamen horiek nola gauzatuko ziren eta nork pagatuko zuen. Berria - Euskal Herria

Ohartu nintzen Txinako harresi handia irudikatzen zuela **eszenario** eskerga hark. Joxemari Iturralde

Leku hura **eszenario** ezin hobea izan zitekeelako, non koka baitzitzakeen bere historia haietarik batzuk, indar eta eraginkortasun handiz. Joan Mari Irigoien

1987an, Sinn Feinen bake estrategia jarri zuen abian, Bakerako **Eszenarioa** izeneko agirian. Berria - Harian

AEBetako Hegoalde Sakona dekadentzia, nostalgia eta sentsualitatearen **eszenario** bihurtu zuen. Berria - Kultura

---

eszenategi *(ETCn **395** agerraldi) iz* eszenatokia.

Ez zuan alfer lanean ari, **eszenategia** artaz prestatzen baizik. Aingeru Epaltza

Eskumako **eszenategian** hirugarreneko txandan jokatu behar zuen Joseluk bere lehenengo borroka. Josu Landa

Riso amaro filmeko **eszenategiak** errealak ziren. Berria - Kultura

The Garden of Eden -Edengo baratza- da, idazlea hil ostean argitaratuko dena, zeinetan Hendaia den **eszenategi** nagusietakoa. Edorta Jimenez

Etsi antzean erretiratu zen tabernako ataria zen **eszenategi** hartatik, eta Kristoaren plazatxoko aulkian jesartzera abiatu zen, handixe ederto ikusten baitzen Pello-Txikireneko kanpoaldea. Josu Landa

Lizarra-Garazi sasoian, berriz, **eszenategi** berria jarri zen modan, eta honekin batera gaur arte heldu zaigun biharko argazkia. Iñigo Aranbarri

Edozein proiektu eta ideia politikok eskubide eta zilegitasun osoa izan behar duela edozein **eszenategi** demokratikotan, horrela Euskal Herrian ere. Berria - Euskal Herria

Eskumako **eszenategian** hirugarreneko txandan jokatu behar zuen Joseluk bere lehenengo borroka. Josu Landa

---

eszenatoki *(ETCn **3.590** agerraldi; orobat **eszena toki** g.er., **eskenatoki** g.er. eta **ezkenatoki** g.er.)* **1** *iz* antzoki edo kideko

batean, gertakizuna jokatzen den lekua.

Nahiago nuke **eszenatokia** garbitzen duen emakume zahar eta ahula izan. Lopez de Arana

Isiltasun hitzartua da; operan, **eszenatokia** hutsik gelditzen denean bezala, orkestraren zazpi konpasetan zehar, zehatz--mehatz. Monika Etxebarria

Jendearen marmarra iritsi zitzaionean, teklatua piano piano itxi, jaiki eta **eszenatokiko** atea zeharkatu zuen, astiro. Alberto Barandiaren

Antzezlanak **eszenatokiaren** hustasunarekin jolas egiten du, espazioaren irakurketa mota asko eskaintzen ditu keinuen nahiz argien bidez. Berria - Kultura

Testu batzuk irakurtzen ditu, publikoarekin hitz egiten du, eta **eszenatokiko** hiru monitoreetan «interlokutore gisa» darabiltzan bere irudiak agertzen dira. Berria - Kultura

Mugurdi koloreko oihal handi batek estaltzen zuen **eszenatokia** alderik alde. Patxi Iturritegi

Aktoreak biluzik zeuden une hartan **eszenatokian** eta kamerinoetarako bidea aurkitu eta norbere jantziak topatzeko ezgauza, publikoak utzitako arropak soinean jarri, taxia hartu eta etxera itzultzea erabaki zuten. Harkaitz Cano

Hitzen joan-etorriak bihurtuko du zoko hori, hain zuzen, edozein drama edo fikzioren **eszenatoki** edo osagarri. Jon Alonso

Frantzian 1759an kendu ziren lehenengo aldiz ikusle berezi batzuentzat **eszenatokian** bertan jarrita egoten ziren aulkiak. Josu Zabaleta

Film baterako **eszenatokien** bila zebilen Mendebaldeko Alemaniako ekoiztetxe batek fabrika hura ikusi eta bertan filmatzeko baimena lortu zuen. Iban Zaldua

Kantatzen jarraitu dute, **eszenatokitik** jaitsita ere tabernan beste era bateko kontzertua hasten dela ahaztu gabe, ohitura onak galdu gabe. Pako Aristi

Etxeko gela guztiek eta barrenean zuten guztiak pelikula bateko **eszenatokia** ziruditen. Fernando Rey

Eszenatokia negar eragiteko moduko goibela zen: bonbillatxo elektriko bakar batek motelki argiztatzen zuen zurezko etxolatzarra, eta erditzalean, leizezulo zabal batean bezala, kideen aurpegi loak eta ametsek itxuraldatuak bereizten ziren. Juan Garzia

Helburua hilburu bat da izatez, eta bizia orduan "nere bizia" bihurtua dago, bizitza, bizi-arte edo hil-artea, hartara arteko arte edo bitarte gisa sentitzen dena, denbora jakinez oratutako leku edo igarobide jakin bat, **eszenatoki** bat, antzezgune bat, karreraleku bat. Iñaki Segurola

Arratsaldean, saioa bukatzear zegoenean, bakarrik azaldu zen Irazu **eszenatokiaren** erdian, eta itsuan aukeratu zuen gai-jartzaileak eskaini zizkion bi gaietako bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Aitak emandako azken aholkua gogoratu zuen, irudika egik jendea hiri begira dagoela **eszenatoki** batean legez, aktore baten gisa joka egik, txukun-txukun, dena pelikulan hartzen ari den kamera baten aurrean bahintz moduan, indarra baino inportantea baita dotorezia. Josu Landa

«Erasotzaileak granadak **eszenatokira** jaurtitzen hasi zirenean, jarraitzaile batzuek bizia salbatu zidaten eurena sakrifikatuz», adierazi zuen Wajedek. Berria - Mundua

1999an **eszenatokietan** kantatzeari utzi zion, «behar fisikoak» eraginda. Berria - Kultura

Batzuetan, entzuleria nolakoa zen, txalotu egiten zitzaizkion txisteak, eta berak, patxada handiz, Gitanes paketea ireki, zigarro bat piztu, ke-hodei trinko bat egin, eta haren atzean alde egiten zuen **eszenatokitik**. Ramon Saizarbitoria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Azkena Rock jaialdiko **eszenatoki** nagusia Mendizabalan izango da, iaz bezala. Berria - Kultura

Mendizorrotzako **eszenatoki** nagusian izango da gaur berriro Chano Dominguez, iazko arrakasta berritzeko gogoz. Berria - Kultura

Guztiek Takonerako **eszenatoki** txikian eginen dute bat. Berria - Euskal Herria

Azken horretan horrenbesteko harridura sortu zuen **eszenatoki** biluziak, Bertolt Brechten teorietan oinarrituta, beste forma bat hartu du Manderlay-n, espazio fisikoa ez da horren inportantea, eta pertsonaiek betetzen dute hutsune hori. Berria - Kultura

Erdi bukatuan dagoen hormak, sofa batek eta bi atek betetzen duten **eszenatoki** hotza. Berria - Kultura

Keinu txiki batzuk eginarazi zizkion, **eszenatoki** txiki batean balego bezala. Lopez de Arana

Apainketa xumea, **eszenatoki** xuri batekin, musikaltxagailu eta kablerik gabe. Herria

Litekeena da gertaera hauen ohiko **eszenatokiak**, batez ere bere bertsio zinematografikoek, pertsona arrunta heroi bihurtzen ahal duten gorespen hau sustatzen laguntzea. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ordurako **eszenatoki** aurrea jendez mukuru betea zen. Berria - Kultura

Gure **eszenatoki** gaineko komentarioak ez dira behintzat traszendentalak! Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Manderlay filmean ere, aurreko Dogville-n gertatzen zen bezala, Trierrek aukeratzen duen antzerki **eszenatokiak**, formak alegia, guztiz baldintzatzen du edukia. Berria - Kultura

Negoziazio **eszenatoki** baten aurrean indar erakustaldia ikusten du Batasunak Gobernuaren jarreran. Berria - Euskal Herria

Xantaiarik, estortsiorik eta indarkeriarik gabeko bake **eszenatoki** batean. Berria - Harian

Nik, behintzat, azkenaldian zalantzak ditut bake eta demokrazia **eszenatoki** batean sartzeko EAJren borondateari eta konpromisoei buruz.Armendarizek Extremadurako herri txikietan barrena ibiltzen diren kamioi- **eszenatokiak** jarraitu ditu. Berria - Ekonomia

5 irud/hed

Eszenatokia Munduko Hiriburua izango da, **eszenatokiko** atzealdeko argi-ilunetan maitasuna eta espioitza izango dira eta erdi-erdian hor izango da Philip Rawlings protagonista nagusia; amerikarra, hoba ez. Edorta Jimenez

Aldecoaren eta Uriberen ipuinen **eszenatokiak** bat eta bera direla pentsatzeko arrazoiak daudela uste dut. Iban Zaldua

Itxuraz, intelektual antifrankisten biltoki; zinez, lagun hurkoa larrutzeko eginahalen **eszenatoki**. Pedro Alberdi

Luxuzko hotel berri horietako bat da, eta ez nuen ezagutzen, artean ez behintzat, egunen batean Aintzaneren adulterioaren **eszenatoki** horri bisita egiteko asmo lausoa banuen arren. Iban Zaldua

Helburu honek gure herrian gatazka gainditzea bermatzen baitu eta bake justu, egonkor eta iraunkorraren **eszenatokia** ekartzen baitu. Berria - Euskal Herria

Herriak behar du bake eta demokrazian oinarritutako **eszenatoki** bat. Berria - Ekonomia

Eta imajinatzen dut hor **eszenatokia** izango dela batzuk besteak baino gehiago direla. Berria - Euskal Herria

Heriotzaren **eszenatokian** detaile txikienak erabakigarri bihurtzen dira. Joxean Agirre

Nire kasuan, sortzen den lehena istorioa da eta, gero, **eszenatoki** batera egiten dut jauzi. Ana Urkiza

Bezperako gertakizunen **eszenatokia** izan zen finka. Jon Maia

Alderdien mahaia funtsezko tresna izango da **eszenatoki** berri bat eraikitzeko. Berria - Harian

Hemendik aurrerako hamahiru kapituluetan, protagonistak ez dira San Frantziskoren "lagunak" izango, Anconako Markako beste zenbait anaia txit bertutetsu baizik; **eszenatoki** geografiko eta espiritual horretantxe bildu ziren, hain zuzen, Actus-Fioretti-ren osagaiak. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bake eszenatoki (6); **beste eszenatoki** (8); **beste eszenatoki batera** (5); **da eszenatoki** (3); **eszenatoki bat** (5); **eszenatoki batean** (6); **eszenatoki baten** (5); **eszenatoki batera** (6); **eszenatoki berri** (8); **eszenatoki berri bat** (3); **eszenatoki nagusian** (3); **eszenatoki politiko** (6); **eszenatokia eta** (3); **eszenatokira igo** (4); **eszenatokira igotzeko** (3); **eta beste eszenatoki** (3)

---

eszenatxo *iz adkor* eszena.

Nahiko nuke, jauna, horren eta bion arteko **eszenatxo** batzuk ikusi ahal izango bazenitu! Josu Zabaleta

Ez, ez barkatu, René Bourgeois..., erantzun nion nik, Dijoneko geltokian izan genuen **eszenatxo** irrigarria gogoan, eta neurtu gabe nola hartuko zuen nire txantxa. Anjel Lertxundi

Haurtzaroan gurasoei erdi entzundako hainbat kontu berritu nuen nire arteko zaldiko-maldiko eroan, haien oharkabean ikusitako hainbat **eszenatxo** berritu nuen; gurasoak nire aurretik zihoazen zalditxo batean, eta sekretu bat duzue, sekretu bat duzue!, egiten nien nik oihu. Anjel Lertxundi

Eszenatxo horiek, giza irudirik ez zuten arren, giza sentipen bortitza adierazten zuten, han falta zirenak berriki joanak edo itzultzeko zorian balira bezala: oso bestelakoak ziren, berak margotu ohi zituen eszena jendegabeen aldean. Xabier Olarra

---

eszenaurreko *izond* eszenaren aurrean dagoena.

Apaletan zehar ibiliz, bata bestearen ondoren argitu zituen argi-azaoak apalak; **eszenaurreko** argien argiaz une batez argituta egon ondoren, ilunpean eta ahanzturan galtzen ziren berriz ere liburuak. Jon Muñoz

---

eszeneratu **ik eszenaratu**.

---

eszenifikatu, eszenifika(tu), eszenifikatzen du *ad* eszena itxura eman.

Aurreko batean ere, erredakziokook auto sakramental baten itxurako festa **eszenifikatu** genuenean, antzeko hitzak esan zituen Adak. Anjel Lertxundi

"Ezker abertzalearen zatiketa **eszenifikatu"** nahi izana. Joxerra Garzia

Zuzendari txit agurgarria bere lekuan eta ni ere neurean egonda, patuak bakoitzari eman dion paperean alegia, argiro **eszenifikatzen** dira liskarrak. Anjel Lertxundi

---

eszenifikazio *iz* eszena itxura ematea.

Musuaren **eszenifikazioa**, musurik gabe. Lutxo Egia

«Estatu plurinazionalaren **eszenifikazioa** izan da», adierazi zuen BNGko bozeramaile Anxo Quintanak erabakiari buruz. Berria - Euskal Herria

Eszenifikazioa egin dezake jarraitzaileen aurrean, zerbait lortu nahian, baina zerbait hori hutsaren hurrena izango den ustea badago. Berria - Harian

Eszenifikazio sinple batez Joan Fontcubertaren argazkiak tartean egingo du fikziozko hitzaldi horren irakurketa Ramon Castro aktoreak. Berria - Kultura

«Pintura arte (apailu) bereizi bezala, garai hartan eredu gisa hartua zen apailu nagusitik, antzerkiarenetik bereiz, bermatu nahia ikusten du Friedek espazioen bereizkuntzaren **eszenifikazio** arrandiatsu horren atzean. Josu Zabaleta

Bozeramaile jeltzaleak, berriz, **«eszenifikazio** hutsa» egitea leporatu zion Permachi. Berria - Harian

Mahaiko azturak kultura baten funtsezko balioen **eszenifikazio** zehatzak izan dira oraintsu arte. Edorta Agirre

Alvarez Rigoletto ezin hobea da, agudotan zoragarri aritu zen, eta, gainera, pertsonaia erabat sinesgarri egin zuen **eszenifikazioari** esker, dramatikoa. Berria - Kultura

Behin gutxieneko batzuetara iritsitakoan, eta badirudi Ibarretxek zerbait adostua daukala auzoko EA eta EBrekin, zertan ibili alferrikako **eszenifikaziotan**? Hasier Etxeberria

---

eszeniko *izond* eszenarena, eszenari dagokiona.

Suediako Arte **Eszenikoen** Zentroko zuzendaria izan zen ondoren. Berria - Mundua

Arte **eszenikoen** goi mailako eskolaren eta zentro dramatiko nazional baten beharraren aldarrikapena nabarmendu dute biharko Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren harira. Berria - Kultura

Arte **Eszenikoen** Goi Mailako Eskola Ofiziala sortzeko urratsak egiteko eskatu diote sektoreko profesionalek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Berria - Kultura

Musikaren eta Arte **Eszenikoen** Jauregia egunotan inauguratzeko ametsa zuen Alfonso Alonso Gasteizko alkateak. Berria - Kultura

Arte **eszeniko** garaikideak bultzatzeko plataforma sortu dute. Berria - Kultura

Testuaren bizkortasunean eta aktore bien gaitasun **eszenikoan** datza euren estilo ikonoklasta. Berria - Kultura

Aurten Eibarko Antzerki Jardunaldietan egon zirela Alejandro y Ana honekin, kasu bietan oso argi utziz beren indar **eszenikoa** eta testu konprometitu eta garaikideak sortzeko ahalmena. Berria - Kultura

Sutea jabetza pribatu bat kixkaltzen ari denean, gure bizilaguna kaltetzen duen desastre horrek sortzen digun gupidak, gertaerari ikuskizun **eszeniko** bati bezala begiratzea galarazten digu. Harkaitz Cano

Zuzendaritza **eszenikoa** : Ainhoa Pineda. Berria - Kultura

Planteamendu **eszenikoa** eta dramaturgia, ordea, nahiko estatikoak dira eta gertakizun ia bakarra pintoreak margotzen duen dekoratua da. Berria - Kultura

Gizonezko horien gorputzetatik abiatu dira jolas **eszenikoa** planteatzeko orduan. Berria - Kultura

Frederic Etxeberri eta Gloria Arasek osatutako bikotearen lanak ez du inor hotz utziko: definitu gabeko espazio **eszenikoan** ariko dira biak, argiztapen, dekorazio, musika eta testurik gabe. Berria - Kultura

Eremu **eszenikoa** diseinatzerakoan abstrakziora jo dute argi eta garbi, eta horrela izanik, agertokian bizikletako gurpil bat eta ibilgailuko besaulkiak baino ez daude, eta besaulkiok hainbat eratan antolatzen dituzte narrazioko une diferenteak adierazteko. Berria - Kultura

Halaxe egon bainintzen ni ere lehen hogei minutuetan, kikildua eta zurrundua bezala, beldur **eszenikoaren** menpe. Joan Mari Irigoien

Halaxe egon bainintzen ni ere lehen hogei minutuetan, kikildua eta zurrundua bezala, beldur **eszenikoaren** menpe. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arte eszeniko (4); **arte eszenikoak** (29); **arte eszenikoak korrika** (3); **arte eszenikoak sustatzeko** (3); **arte eszenikoei** (7); **arte eszenikoen** (62); **arte eszenikoen alorrean** (3); **arte eszenikoen eremuan** (3); **arte eszenikoen eskola** (4); **arte eszenikoen goi** (8); **arte eszenikoen jauregia** (6); **arte eszenikoetako** (21); **arte eszenikoetako max** (8); **arte eszenikoetan** (4); **baliabide eszenikoen** (4); **eremu eszeniko** (7); **eremu eszenikoa** (9); **eremu eszenikoaren** (3); **espainiako arte eszenikoetako** (7); **eszenikoen alorrean** (3); **eszenikoen arteko** (3); **eszenikoen eremuan** (3); **eszenikoen eskola** (4); **eszenikoen goi** (8); **eszenikoen goi mailako** (7); **eszenikoen jauregia** (6); **eszenikoen jauregia egiteko** (3); **eszenikoetako max** (8); **eszenikoetako max saria** (3); **eta arte eszenikoen** (13); **eta arte eszenikoetako** (4); **lengoaia eszeniko** (4); **nazioarteko arte eszenikoen** (3)

---

eszenikoki *adlag* era eszenikoan.

Kontzertu bakoitza show bat da The Legendary Shack Shackersentzat, hal musikalki nola **eszenikoki**. Berria - Kultura

---

eszenografia 1 *iz* antzezlan edo film bateko dekoratua edo dekoratu multzoa.

Eszena eta **eszenografia**. Josu Zabaleta

Ez gara ohartu kostunbrismoa arbuiatu dugun aldi berean gure arbuioaren suak erre dituela kostunbrismoak erabiltzen zituen **eszenografia** (paisaia, girotze-lana) eta *dramatis personae* delakoa ere. Anjel Lertxundi

Horien lanetan **"eszenografiak"** eszena-antolamenduan espazioari dagokion alderdia nahi du esan, eta "zuzendaritza" esapidea alderdi dramatikoa izendatzeko uzten da, "antzezleen zuzendaritza". Josu Zabaleta

Oso lotura estua dagoela alde batetik antzerki-eszenaren eta antzerkiko **eszenografiaren** eta bestetik pinturako eszena-antolamenduaren, eta azkenik, filmeko eszenan, batasun dramatiko bat duen eremu diegetikoaren antolamenduaren artean. Josu Zabaleta

Errealizazio eta **eszenografiarekin** loturiko alderdi guztiak hartu behar direla telebistako bat-bateko bertsolaritza den genero hibrido bezain konplexuaren *actio*aren

osagarritzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Beharbada **eszenografiarik** gabeko heriotzak, aiuma eta tiro hotsik gabekoak, aztertzen hasi beharko zenukete zuek ere. Joxean Agirre

Eszenografiaz aldatzeak beti balio du nerbioak baretzeko, arnasa hartzeko, aldez aurretik gezurra dela jakin arren, beste lekuetan gauzak diferente direla sinesteko. Harkaitz Cano

Pinturari dagokionez, zinemak baino estuago jarraitu du antzerkiaren historia, eta espazioaren **eszenografiazko** ikusmoldea koadroaren antolamendu perspektibistarekin batera hasi zen nabarmentzen hartan. Josu Zabaleta

2 (izenondoekin)

Bizitzatik oso hurbil, berriz, **eszenografia** huts eta tramoia soil baino zerbait garrantzitsuagoa den plano batean eta bizitza aberasten duen amaierarik gabeko errepresentazio baten haritik, era guztietako paisaiak daude. Anjel Lertxundi

Ohitura eta konbentzioaren aurka eginez, eta zinez penaturik ikuskizun hauen tradizio guztiz txalotuak eta **eszenografia** historikoak gezurtatu beharraz. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Agindu dioten **eszenografia** itxura prestatuko du: bi eszena-hegal eta atze-oihal bat, arrasto arrosa eta urre kolorekoak dituena, ate batekin. Josu Zabaleta

Irudikapen horretan **eszenografia**-lana lekuz aldatuz joaten da, eta segidan datozen ikuspegien koherentzia gordetzea izan behar du helburua. Josu Zabaleta

Eszenografia-kontzeptua bere zentzurik zabalenean hartzen zuen, lekuak irudikatzeko modua esan nahi duen zentzuan alegia, Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eszenografia ere (4); **eszenografia eta** (10); **eszenografia eta jantziak** (6); **eszenografia minimalista** (4); **eszenografia osagarria** (3); **eta eszenografia** (15); **eta eszenografia ere** (3)

---

eszenografiazale *izond* eszenografiaren zalea dena.

Horrez gain, ni ez naiz batere **eszenografiazalea**. Berria - Kultura

---

eszenografiko *izond* eszenografiarena, eszenografiari dagokiona.

Funtzionalak, espazio **eszenografikoa** eratzeko, mugimendu bati jarraitu edo aurrea hartzeko, begirada bati jarraitu edo hura topatzeko, xehetasun esanguratsu bat aukeratzeko edota pertsonaiaren ezaugarri subjektibo bat agerian jartzeko balio dutenak. Josu Zabaleta

Azkenaldi honetan, halako obsesioa zabaldu da bertsolarien eta antolatzaileen artean, bertso-saioetan beste osagarri **eszenografiko** batzuen beharra azpimarratuz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ezin daiteke trikimailu **eszenografiko** bat izan. *Hamlet* tragedia bat da eta *La tempestad* komedia garratza, estilo ezberdinak dira, diskurtso **eszenografiko** zatitu bat dago baina funtsean txanpon beraren bi aldeak dira. Patxi Iturritegi

---

eszenografo *iz* eszenografian aditua den pertsona.

Serge Muñoz **eszenografoa**. Herria

Akats larriak daude hastapeneko prestakuntza espezifiko, profesional eta jarraituaren eskaintzan eta arte eszenikoetako lanbide multzoan (sortzaileak, interpreteak, teknikariak, jantzi-diseinugileak, argiztatzaileak, **eszenografoak**) eta dantzan. Berria - Kultura

Margolariaz gain, **eszenografoa** da von Gierke. Berria - Kultura

1921eko antzezpena bera ere ez da hartu behar *Sei Personaggi in cerca d'autore* obraren behin betiko erredakziotzat, geroztik antzezle, antzerki zuzendari eta **eszenografo** askok egingo zizkioten ekarpen askoren abiapuntutzat baizik. Josu Zabaleta

Espazioaren irudikapenari dagokionez, ohartu beharra dago **eszenografo** handiak, italiarrak batez ere (Torelli, Della Bella biak, Servandoni), pinturaren antzeko baliabideak erabiliz ahalegindu zirela ilusio hori indartzen, perspektibaz baliatuz, jakina. Josu Zabaleta

Eszenografoaren lanbidea aski berandu azaldu zen antzerkian. Josu Zabaleta

Ezeren gainetik istorioari garrantzi emateko lan horretan, Richterrek Mario Carosi **eszenografoaren** laguntza izan du. Berria - Kultura

Jokin Oregi zuzendariarentzat eta Javi Pintado **eszenografoarentzat** izan dira sariak. Berria - Kultura

---

eszentrika *iz* errotazio mugimendu bat atzera-aurreko mugimentu bihurtzeko mekanismoa.

Orbita haiek, beren sinpletasunean eta beren xumetasunean, guztia esplikatzen zitean, epizikloetarat eta **eszentriketarat** jo gabe, nola jo behar izan baitzuten bai Ptolomeok eta bai Kopernikok berak ere. Joan Mari Irigoien

Segidan Ptolomeoren teoriak esplikatu zizkidan, erraiten zidala nola astronomo greziarrak orbiten inguruko orbitetarat jo behar izan zuen -epizikloideetarat eta **eszentriketarat**-, planeten eta izarren mugimendu uste baino konplexuagoei behar bezala ihardesteko. Joan Mari Irigoien

---

eszentriko *izond/iz* **1** bere zentrotik at dagoena.

Gezurti porrokatuaren egiaranzko hurbilketarik handiena: bere orbita **eszentrikoaren** perigeoa. Xabier Olarra

2 bitxia, nabarmena.

Janzkera **eszentrikoa** utzi eta traje txukuna, panty zuriak eta takoi-zapata irrigarri batzuk jantziko ditun. Joxan Elosegi

Bunker baten barruan mundu osoko bere lagunak egin dizkioten opari **eszentrikoak** gordetzen ditu Kim Jong Ilek, tartean Stalinek bere aitari oparitu zion luxuzko trena. Berria - Mundua

Amona **eszentrikoaren** eta iloba kaikuaren komedia. Anjel Lertxundi

Joyce deitura zuen dublindar **eszentriko** bati. Harkaitz Cano

F.W.H.Myers psikologo **eszentrikoa** zen salbuespen bakarra kontu hartan. Xabier Olarra

Desberdina izan nahi zuen seguruenik, heterodoxoa, **eszentrikoa**, eta lortu zuen alafede! Joxean Agirre

Inork ez du jakingo zer den **eszentriko** bat ez badu **eszentriko** japoniar bat ezagutu. Joxan Elosegi

Beste zuzendari batzuen moduan, 7 urtetan behin film bat egin eta modu **eszentrikoan** biziko balitz, legenda horietako bat litzateke. Berria - Kultura

Belgradek tropak mobilizatzeko mehatxua egin du, aliatuak zer egin ez dakitela daude, munduak harriturik begiratzen dio poetaren balentria **eszentrikoari**. Anjel Lertxundi

---

eszentrikotasun *(orobat **ezentrikotasun**) iz* eszentrikoa denaren nolakotasuna.

Mojaren pasadizoa kontatu zuenez geroztik *The Nunkiller* bihurtu naiz soziedadean, Prusiarrak eta biok gure **eszentrikotasunen** mozorroa jantzi eta norbere pertsonaiak paseatzera ateratzen ditugun gauetan. Harkaitz Cano

Erosoa da rol banaketa hori eta gure inguruan dagoen jendeak barre egiten du elkarri leporatzen dizkiogun **eszentrikotasun** gehiegizkoekin. Harkaitz Cano

Kanta batzuk amaituta omen zeuden, beste batzuk azkeneko nahasketaren zain, baina Brianen **ezentrikotasuna** eromen bihurtzen ari zen. Berria - Kultura

---

eszentrizitate *iz* eszentrikotasuna.

Lekaime horiek, gizarteko goi-gerizetatik zetozenak gehienak, kultura-hornidura nabarmena zekarten eta prestakuntza erlijioso eta teologikoa hartzeko gogo bizia, eta horietako askok ikuspenetarako hipersentiberatasuna zuten eta ia **eszentrizitatera** iristen zen erlijio-sentimendu sendo bat. Joan Mari Lekuona

Lekaime horiek, gizarteko goi-gerizetatik zetozenak gehienak, kultura-hornidura nabarmena zekarten eta prestakuntza erlijioso eta teologikoa hartzeko gogo bizia, eta horietako askok ikuspenetarako hipersentiberatasuna zuten eta ia **eszentrizitatera** iristen zen erlijio-sentimendu sendo bat. Joan Mari Lekuona

---

eszeptiko *(orobat **estzeptiko** g.er. eta **eskeptiko** g.er.)* **1** *izond* zerbaitetan, eskuarki jende gehienak sinesten dituen gauzetan, sinesten ez duena.

Descartes ez zen **eszeptikoa**, baina eszeptizismoaren uste-egoeratik nahi zuen abiatu. Askoren artean

Eszeptikoak eta baikorrak. Berria - Mundua

Idealista dogmatikoa materiaren izatea ukatzen duena litzateke, idealista **eszeptikoa**, zalantzan jartzen duena, bere izatea frogaezintzat duelako. Ibon Uribarri

Inbertsore **eszeptikoenek** ere arrapaladan ekin zioten akzioak erosteari. Iñaki Heras

Baina garai **eszeptiko** eta -esaldia erabiltzea zilegi bazait- pentsamenduek oinazetu batean bizi gara. Irene Aldasoro

Espiritua egoera **eszeptikoan**, hau da, bizitzari norabidea emango zioten egia ziur eta koherentez osatutako sistema aurkitzeko esperantzarik gabe, etsipenaz, 383an Erromara joatea erabaki zuen. Imanol Unzurrunzaga

Eszeptikoa da begi aurrean duen egia horrekin konformatzen ez dena. Berria - Kultura

Stephen lekuaren sakratutasunak mendean hartu zuela iruditzen zitzaion Margareti; ni, berriz, **eszeptikoa** nintzen. Xabier Olarra

Egoera horretan irtenbiderik zuzenenak bi motatakoak lirateke, alegia, **eszeptiko** bihurtu -eta, beraz, ezer ezin dela ezagutu onartu- edo ezagutzaren bestelako kontzeptuen bilaketari ekin. Askoren artean

Eszeptikoa ez den alternatiba errepresentazionismoa da. Askoren artean

Italiar belaunaldi oso baten alai-aire ironikoa zen, faxismoa arbuiatzeko aski buruargi eta prestu, aktiboki kontra egiteko **eszeptikoegi**, itxura hartzen ari zen trajedia pasiboki onartu eta geroaz etsitzeko gazteegi. Juan Garzia

-Aranguren **eszeptiko** hutsa duk, nik uste. Lutxo Egia

Solidariook, oro har, **eszeptiko** samarrak izan gara hasieratik bide horrekin, eta eszeptizismo hori areagotuz joan da prozesuak nolako bidea egin duen ikusi dugun neurrian. Edurne Elizondo

Eszeptiko burutsu batek esana du: [...]. Josu Zabaleta

Duda eta pentsamendu lerrakorra ukan dezakezu edozein gaitan, **eszeptiko** aseptikoek nola. Itxaro Borda

Harriturik nago, sinetsi ezinik Perti antiklerikala, Perti **eszeptikoa**, Perti zakarra, zer, eta hileta batera doala. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Ez da balioen martzialtasun publikoki mundu guztiari esijitu hori bakarrik, balioen eztabaidan **eszeptiko** jartzen zaituena. Joxe Azurmendi

Bitartean, gaudenean gaudela, hainbeste filosofo kazetari eta politiko moral-irakaslerekin kalakari, jeneralean madarikazioa dariela, nola ez egon **eszeptiko** balioen kontuari buruz! Joxe Azurmendi

Ilusionea berpiztu nahian, baina **eszeptiko** samar, bertarat abiatu da. Jose Angel Irigaray

Batzuk baikorrago, beste batzuk **eszeptikoago**. Berria - Euskal Herria

3 irud/hed

Tesi **eszeptikoak** honako hau zioen: gustuari buruzko hipotesi batek esandakoa bere kontrakoak esaten duena baino hobea, onargarriagoa, ezin da izan. Askoren artean

Josebak keinu **eszeptiko** bat egin zuen. Bernardo Atxaga

Tupustean aienatu zen filosofoaren hoztasun **eszeptikoa**. Jose Morales

Hizketa **eszeptiko** eta onbera, izan ere, arretarik gabeko azterketa batek baino ez bailezake har biraogiletzat. Juan Garzia

Metodo **eszeptikoa** ziurtasunari datxekio, bi aldeek egia eta adimenaren bidez bideratzen duten gatazka honetan gaizki-ulertzearen puntua aurkitzearren. Ibon Uribarri

Metodo zientifikoaren jarraitzaileei dagokienez, hauek metodo dogmatikoaren edo **eszeptikoaren** arteko aukera dute, nahiz eta edozein kasutan sistematikoki jokatzeko beharra duten. Ibon Uribarri

Galdekizun kosmologikoen aurkezpen **eszeptikoa** lau ideia transzendentalen arabera. Ibon Uribarri

Objekzio denak objekzio dogmatiko, kritiko eta **eszeptikoetan** sailka ditzakegu. Ibon Uribarri

Zure hitzetan nolabaiteko mingostasun **eszeptikoa** sumatzen dudala iruditzen zait. Jon Alonso

Etsipen **eszeptikoan** erortzeko. Ibon Uribarri

Idealismo **eszeptikoak** geratzen den ihes bakarra hartzera behartzen gaitu, hots, agerpenen idealtasunera ihesa. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eszeptikoa (3); **bat eszeptiko** (3); **eszeptiko agertu** (4); **eszeptiko bat** (3); **eszeptiko bihurtu** (4); **eszeptiko eta** (7); **eszeptiko samar** (3); **eszeptiko samarrak** (3); **eszeptikoa da** (3); **eszeptikoa naiz** (4); **metodo eszeptikoa** (3)

---

eszeptikoki *adlag* era eszeptikoan.

Ikusleek, nor bere ilaran orain garailea, orain galtzailea dela ikusten duten heinean, gatazkaren objektua bera **eszeptikoki** zalantzan jartzeko arrazoia aurkitzen dute. Ibon Uribarri

Ausart gaitezen, bada, **eszeptikoki** bada ere, "geure buruaz pentsatzen", Kant gutxi eta gaizki ezagutzen dutenek beti Kanti esanarazi ohi diotenez; edo "ausart gaitezen ulertzen", Ilustrazio berri bat galdatuz Nietzsche hisiatu den legez. Joxe Azurmendi

---

eszeptikotasun *iz* eszeptikoa denaren nolakotasuna.

Diskoaren izenburuari erreparatuta, Sevillakoak helduago dirudi orain, urtebetez aldizkari guztietan azaldu ondoren ondorio asko atera duela ematen du, eta halako **eszeptikotasun** horrek mesede egiten dio haren lanari. Berria - Kultura

---

eszeptizismo **1** *iz* jakite sendorik edo iritzi ziurrik ez dagoela uste duen doktrina filosofikoa.

Eszeptizismoa giza arrazoimenarentzako atsedenlekua da, non bere ibilaldi dogmatikoei buruz gogoetatu eta aurkitzen den lurraldearen eskema egin dezakeen, honela bere bidea aurrerantzean segurtasun gehiagorekin aukeratu ahal izateko. Ibon Uribarri

Akademikoen **eszeptizismoak** zirrara sentigarrietatik datorkeen ziurtasun kognoszitiboa defendatzen zutenen jarrerak kritikatu nahi zituen. Imanol Unzurrunzaga

Agustinek ez du onartzen ez **eszeptizismo** setatia ez eta arinkeria ere proposizio bat ontzat ematerakoan. Imanol Unzurrunzaga

Ez pragmatismoak ezta hizkuntza arruntaren filosofiak ere ez dute Humeren **eszeptizismoa** gainditzen, saihestu baizik. Askoren artean

Dialektika transzendentalak, beraz, ez dio **eszeptizismoari** babesik ematen, baina bai metodo eszeptikoari. Ibon Uribarri

Descartes ez zen eszeptikoa, baina **eszeptizismoaren** uste-egoeratik nahi zuen abiatu. Askoren artean

Eszeptizismoa ondo dago korronte filosofiko gisa, baina ez bizi jarrera gisa. Berria - Harian

2 zerbaitetan, eskuarki jende gehienak sinesten dituen gauzetan, ez sinesteko joera.

Bien artean ni, gisa batez bat eta bestea doi bat ulertzen ditudala, ene **eszeptizismoa** dela medio naski. Piarres Aintziart

Giza izaerak mundua hobetzeko dituen ahalbideei buruzko etsipena; idazleak bere langintzarekin hobetu lezakeenari buruzko **eszeptizismoa**. Anjel Lertxundi

Itxaropena eta **eszeptizismoa** tartekatzen da Burundiko herritarren artean, azken bake akordioaren ostean. Berria - Mundua

Gazteak izan arren, halako **eszeptizismo** bat sentitzen zuten guztiarekiko, bizitzaz aspertuak egongo balira bezala. Aritz Gorrotxategi

Hochedéren aurrean nire uko txiki guztiak, nire zabarkeriak, nire nagikeriak, denak itsusten dizkiot nire buruari, eta guztien gainetik, halakorik bada, nire **eszeptizismoak**. Josu Zabaleta

Bere ezagutzei eta lanbideari buruzko **eszeptizismo** horrek ospea ematen zion. Josu Zabaleta

Eszeptizismoa eta hitz jokoa besterik ez dago horretan. Josu Zabaleta

-Malfoy, Slytherinen oinordekoa? -esan zuen Hermionek **eszeptizismoz**. Iñaki Mendiguren

3 (izenondo eta izenlagunetan)

Maltako bandera zuri-gorriarekin batera Europako urdin-horia ere bere egingo dute valletarrek, baina oraingoz **eszeptizismo** handia dago. Berria - Mundua

Fenomenoei buruzko ezagupen ziurra lortu ahal izateaz **eszeptizismo** sakona adierazten zuen. Xabier Olarra

Joxe Mariri galtetu nion ea zer nahi ote zuten Ana bahitu zutenek; erantzun zidan izenak eskatu omen zizkiotela, ETA ko ekintzaile legalak zein ziren; "zakur **etarra"** deitzen omen ziotela. Juan Kruz Igerabide

Irailaren 29an atxilotutako hiru **etarrek** datu zehatzak zeuzkaten 2001eko irailaren 8ko ezkontzaz. Berria - Euskal Herria

Etarren amek negar egiten dute beren semeak hiltzen dituztenean, baina batez ere beren semeek hiltzen dutenean. Itxaro Borda

---

etekin 1 *iz* zerbaitetik eskuratzen den irabazia edo onura. ik **mozkin**.

Horra zein **etekin** emango dizuten urreek, gaztetandik arduraz zaindu dituzun horiek. Anjel Lertxundi

Frantzian, berrogei milaren bat azti, igarle, ezkutu-ikusle eta karta-botatzaileren artean banatzen da urtero ehunka eta ehunka mila milioi liberako **etekina** ematen duen negozioa. Juan Garzia

Inguruan dena ugaritu eta ugaritu egiten dela, **etekinak** eta mozkinak oparo emanez. Jose Morales

Akordioaren arabera, Robertsonen Free Gold enpresak **etekinen** %3 eman behar zizkion Taylorren gobernuari. Berria - Mundua

Zilarra laster bikoiztu zen Europan, eta **etekina** erdira urritu zen Espainiarentzat. Iñaki Iñurrieta

Etxaldeak aurrera egingo luke, zulo guztiak josiko lituzke, **etekinak** laukoiztu egingo lirateke eta zor guztiak kitatzeko aukera izango luke. Jose Morales

Plastikoak: Enpresa ertain eta txikiek zabalkundea baliatu dezakete epe ertaineko **etekinak** lortzeko. Berria - Ekonomia

Irabazpide txarra!, hiru urte barru urtean hogei mila errubloko **etekina** aterako nuke nik etxalde honetatik. Jose Morales

Kreditu publikoak meategien lekua hartu zuen, eta are gehiago urritu zen espainiarrek haietatik ateratzen zuten **etekina**. Iñaki Iñurrieta

Etekina ateratzen diezu gauza guztiei. Jose Morales

Astebete barru negozioa itxi dezaket **etekinak** lortuta. Lopez de Arana

Gaur egun Gamesaren akzio bakoitzeko **etekina** 2,49 eurokoa da. Berria - Ekonomia

Betiko kontua, arazo ekonomikoen oinarria: **etekinak** nola banatzen diren giza talde desberdinen artean. Iñaki Heras

Zure biziari **etekinen** bat atera diezaiokezu oraindik. Mirentxu Larrañaga

Inoren lanaren **etekinetatik** bizi denaren aberaste kontrolgabea. Juan Garzia

Egun osoa irakurtzen pasatzen badut, egunari **etekinik** aski zukutu ez izanaren halako egonezin mingots batez oheratzen naiz oraindik ere. Anjel Lertxundi

Josu Jon Imazek uste du zalantzarik gabe apustu egin behar dela bakearen alde, horrek hauteskundeetan **etekinik** ematen ez badie ere. Berria - Euskal Herria

Andoni Etxebarrietak aitortu zuen Irizar taldeak bere **etekinak** %50 handitu egin zituela iaz, 2004. urtearekin alderatuta. Berria - Ekonomia

Eta atera zion **etekinik** bere lasaitasunari. Berria - Kirola

Ez nire peskizek ez beste inorenik izan du **etekinik**. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Galdetu zion ea ugazabarik zegoen edo berak gobernatzen zuen ostatua, ea **etekin** handiak ematen zizkion. Jose Morales

Amonak esaten zuen **etekin** handia atera behar zeniola bizitzari. Lourdes Oñederra

Baldin eta **etekin** handiagoa ematen duten meategi ugariagoak aurkitzen badira, zenbat eta ugariagoak izan, hainbat lehenago amaituko da **etekina**. Iñaki Iñurrieta

Ez dakigu zergatik ordaindu behar izan dituen gizarteak, hipoteka-zorpetze bidez, lurzoru jabeek eta sustatzaileek poltsikoan sartu dituzten **etekin** ikaragarri horiek. Berria - Euskal Herria

Enpresak atzo jakinarazi zuenez, bere **etekin** garbia %49 hazi zen: 202 milioi euro, guztira. Berria - Ekonomia

Etekin osoa: %56. Berria - Euskal Herria

Ez dakigu zergatik ordaindu behar izan dituen gizarteak, hipoteka-zorpetze bidez, lurzoru jabeek eta sustatzaileek poltsikoan sartu dituzten **etekin** ikaragarri horiek. Berria - Euskal Herria

Hilde andereak nahiko harreman estuak izan zituen agintari naziekin... eta **etekin** galantak atera omen zituen harreman haietatik. Alberto Ladron Arana

Pepe Melek ez zion garrantzi gehiegirik eman nahi izan aipatu txapelketari, baina kanporaketak aurrera joan ahala **etekin** polita atera dio. Berria - Kirola

Hobe, bi elkarrekin ari izatea bakarka baino, elkartze horretatik **etekin** hobea aterako baitute. Elizen arteko biblia

Eskuzabal ordaintzen zien espioitza lan hori, hain **etekin** ederra ematen ziona. Karlos Zabala

Latino Amerikako epe laburreko inbertsioen **etekin** altuak [...] erabakigarriak izan dira Iparretik Hegora egindako finantza-transferentzia garbien aldaketa ikusgarri horretan. Koro Navarro

Energia geotermikoa, eolikoa edo biomasan oinarritutakoa, berriz, ez dira ingurumenarekiko kaltegarriak, baina **etekin** baxukoak dira. Berria - Gaiak

Kroazia, pattal: Ingalaterrako atzeko lerroak egindako opariari **etekin** eskasa atera zioten. Berria - Kirola

Iazko «emaitza bikainen ondotik», Cementos Lemonak «uste baino **etekin** apalagoak» lortu ditu lehenengo hiruhilekoan. Berria - Ekonomia

Azkenean, zuzen zein trabes, zer edo zer ateratzen zen beti, nahiz **etekin** eskasekoa izan, ez oso purua, apika. Juan Garzia

Jakinduria etxaldea zure antzera gobernatzeko; **etekin** seguruak ateratzen asmatzeko, zuk bezala. Jose Morales

Negoziazio mahai horietatik egiazko **etekin** politiko bat, demokratikoki onartua eta denek babestua atera nahi badugu, mahai horrek gizarte guztia ordezkatu behar du. Berria - Euskal Herria

Instituzioak ohartu behar dira hau industria bat dela eta **etekin** ekonomikoez gain kulturalak eta irudizkoak ere sortzen dituela. Berria - Kultura

Etekin komertzialik ez duen musika da, saltzeko zaila. Berria - Kultura

Kexu da «**etekin** pribatuari» atea zabaltzen ari zaiolako. Berria - Euskal Herria

Errauste planta Aritzetan eraikitzearen erabakia «**etekin** elektoralak lortzeko» erabiltzen ari dela iritzi zion. Berria - Euskal Herria

Fruitu eta ordain guztiak jasotzen zituzten, eta, handienetako bat frankoen usadioen bidetik jasotzen ziren **etekin** judizialak (freda) zirenez [...] feudoa zuenak justizia ere bazuen. Iñaki Iñurrieta

Egunerokotasunari **etekin** poetikoak ateratzen dizkion saio arrunt itxurakoa. Anjel Lertxundi

Etekin distiratsuarekin ahoa bete poz, errementariak fardel batean bildu zuen altxor sortu berria, bidaia baterako prest. Anjel Lertxundi

Orbea trebakuntza helburu duen talde amateurra dela, berehalako **etekin** publizitarioa garaipenen bidez bilatzen ez duena. Berria - Kirola

Nazioarteko merkataritzaren ezaugarriak ordea, errealitatean, ekoizpen-faktoreen mugikortasun gero eta handiagoa -kapitalaren faktorearena bereziki, bai finantza-forman, bai forma fisikoan-, monopolio-konkurrentzia eta goranzko **etekinak** dira. Koro Navarro

Gutxieneko ahaleginari gehieneko **etekina** ateraz burutu zituen lehen eta bigarren mailako eskola-urte luzeak. Juan Garzia

Azkeneko **etekinak** hasierako galerak estaltzen dizkio. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan)

Etekin-banaketa bat izango da frantziarraren eta holandarraren artean. Iñaki Iñurrieta

Justizia, beraz, hala feudo zaharretan nola berrietan, feudoari berari zegokion eskubidea zen, feudoaren zati zen eskubide **etekin**-emailea. Iñaki Iñurrieta

Energia nuklearraren aurkako mezua «gizarteari helarazi behar» zaiola aipatu zuen, zentralari eusten diona «enpresa pribatuen **etekin** interesa» dela argituta. Berria - Euskal Herria

· 8.500 euro baino lan **etekin** txikiagoak eta 1.500 euro baino ondare irabazi apalagoak dituenak. Berria - Ekonomia

IRAk zuzendu dituen eta «mila milioiko diru **etekinak**» atera dituzten ekintza asko ere argitu gabe daude oraindik ere. Berria - Harian

Kapital **etekinak** handiagotzeko. Berria - Euskal Herria

Tourra eta Giroa korritu gabe, taldeak publizitate **etekin** gutxi lortuko duela dio Gonzalez Ponsek. Berria - Kirola

Batasunaren legez kanporatzeari boto **etekina** ateratzeko erreparorik ez izatea. Berria - Euskal Herria

Bi alderdiei egotzi zien «atentatuaren ondorioetatik alderdi **etekinak** doilorki» atera nahi izatea. Berria - Euskal Herria

Terrorismoa ez zutela erabiliko hauteskunde **etekinak** ateratzeko esan zuten, baina sinatu zutenetik batak besteari leporatzen dio hori ez errespetatzea. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalik eta etekin (15); **ahalik eta etekinik** (16); **akzio bakoitzeko etekina** (3); **askoz ere etekin** (3); **atera zion etekinik** (3); **baino etekin** (10); **baino etekin handiagoa** (3); **baino lan etekin** (4); **bakoitzeko etekina** (3); **berehalako etekin** (3); **beren etekinak** (3); **da etekin** (4); **dio etekinik** (3); **diote etekina** (4); **diru etekinak** (3); **du etekin** (4); **du etekinik** (3); **dute etekin** (3); **enpresen etekinak** (4); **enpresen etekinen** (3); **ere etekin** (4); **ere etekina** (5); **ere etekina atera** (3); **errubloko etekina** (4); **eta etekin** (45); **eta etekin gehiena** (3); **eta etekin handiena** (8); **eta etekina** (8); **eta etekina atera** (3); **eta etekinak** (10); **eta etekinik** (18); **eta etekinik handiena** (14); **etekin aparta** (3); **etekin asko** (4); **etekin atera** (4); **etekin bikaina** (6); **etekin ederra** (8); **etekin ederra atera** (4); **etekin ederrak** (3); **etekin ekonomiko** (8); **etekin ekonomikoa** (6); **etekin ekonomikoak** (7); **etekin ezin** (7); **etekin ezin hobea** (7); **etekin garbia** (4); **etekin garbiak** (7); **etekin gehiago** (5); **etekin gehien** (8); **etekin gehien atera** (4); **etekin gehiena** (3); **etekin guztiak** (3); **etekin handia** (21); **etekin handia atera** (7); **etekin handia ateratzen** (5); **etekin handiagoa** (15); **etekin handiagoa atera** (5); **etekin handiagoak** (6); **etekin handiak** (9); **etekin handiak ematen** (4); **etekin handiena** (14); **etekin handiena atera** (5); **etekin handiena ateratzeko** (3); **etekin handiena ateratzen** (3); **etekin handienak** (5); **etekin handirik** (4); **etekin hobea** (6); **etekin ona** (4); **etekin ona atera** (3); **etekin paregabea** (6); **etekin polita** (3); **etekin politiko** (5); **etekin politikoa** (14); **etekin politikoa atera** (3); **etekin politikoa ateratzeko** (6); **etekin politikoak** (6); **etekin politikoak ateratzeko** (4); **etekin politikorik** (7); **etekin politikorik atera** (3); **etekin pribatua** (3); **etekin publizitarioa** (5); **etekin txikia** (3); **etekin txikiagoak** (5); **etekin txikiagoak eta** (4); **etekina atera** (55); **etekina atera ahal** (4); **etekina atera behar** (4); **etekina atera nahi** (16); **etekina atera nahian** (3); **etekina atera zion** (7); **etekina aterako** (10); **etekina ateratzea** (8); **etekina ateratzea nahi** (3); **etekina ateratzeko** (23); **etekina ateratzen** (37); **etekina eman** (5); **etekina ematen** (5); **etekina ematen du** (3); **etekina lortzen** (3); **etekinak atera** (7); **etekinak atera nahi** (3); **etekinak ateratzeko** (5); **etekinak ateratzen** (4); **etekinak eman** (4); **etekinak ematen** (7); **etekinak eta** (3); **etekinak handitzeko** (3); **etekinak lortu** (7); **etekinak lortzeko** (6); **etekinak murriztu** (3); **etekinen bat** (7); **etekinik atera** (17); **etekinik aterako** (6); **etekinik ateratzen** (4); **etekinik ez** (9); **etekinik gabe** (4); **etekinik gabeko** (5); **etekinik handiena** (23); **etekinik handiena atera** (6); **etekinik handiena ateratzen** (6); **etekinik handienak** (4); **etekinik onena** (3); **euroko etekin** (4); **euroko etekina** (4); **euroko etekinak** (7); **euroko etekinak lortu** (3); **hauteskunde etekinak** (4); **hori etekin** (3); **horrek etekin** (4); **horri etekin** (3); **horri etekina** (14); **horri etekina atera** (4); **horri etekina ateratzen** (8); **inoizko etekinik** (3); **inoizko etekinik handienak** (3); **inolako etekinik** (4); **lan etekin** (4); **lan etekin txikiagoak** (4); **mila errubloko etekina** (3); **milioi euroko etekin** (4); **milioi euroko etekina** (4); **milioi euroko etekinak** (7); **opariei etekin** (3); **zen etekin** (3); **zer etekin** (4); **zion etekin** (3); **zion etekinik** (5); **zuen etekin** (3)

---

etekintsu *izond* etekinez betea.

Aspaldian egindako inbertsiorik **etekintsuena**. Berria - Euskal Herria

Aitak etorkizun **etekintsua** beste deus ikusten ez zuen tokian, ordea, paisaiaren ederrez liluratzen zen Nora. Anjel Lertxundi

Ingalaterran, hesitze-higikundeak landa-ekonomia irauli zuen eta lurraren erabilera hutsik **etekintsua** oztopatzen zuten azken eragozpenak ezabatu zituen. Koro Navarro

Gauden sistemak balio garrantzitsuak daudela irizten du (bapatekotasuna, masifikazioa), baita hain garrantzizkoak ez direnak ere, edo hain **etekintsuak** ez direnak (egiaren irizpidea). Berria - Gaiak

Ahaleginean, ezta mundu guztiak ere; eta neure baliabideak hain ditut ongi kudeatuko, apurragatik diratekе **etekintsu**. Juan Garzia

---

eten[1], eten, eteten *da/du* ad **1** hari edo kideko baten jarraitasuna hautsi.

Orduan, zilarrezko haria **eten** egingo zaik, urrezko ontzia hautsiko. Elizen arteko biblia

Suak erretako liho-hariak bezalako bihurtu ziren Sansomi besoak lotzen zizkioten sokak eta **eten** egin zitzaizkion eskuetako lokarriak. Elizen arteko biblia

Baina era berean hautsi dute denek Jaunaren uztarria, **eten** harekiko lokarriak. Elizen arteko biblia

Nondik edo handik, soka **eten** egiten da beti. Jose Morales

Behin eta berriz lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark beti kateak **eten** eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menperatzeko gauza. Elizen arteko biblia

Fusibleak **eten** egin ziren, eta ilunpean murgildu zituen Ruche jauna eta Ravignandarrak. Jon Muñoz

Itsaso Hilera zihoan ur-korrontea, berriz, erabat **eten** zen. Elizen arteko biblia

Normalean gauzak lotzen zituen katea **etenda** balego bezala. Anton Garikano

Ez dadila gehiago etorri, gaurtik **etentzat** jotzen ditudala gure harreman profesionalak. Anjel Lertxundi

Airea ez da **eteten**, baina bai estutzen ahots-bidea meharragoa egiten baita. Lourdes Oñederra

2 jardunaz eta kidekoez mintzatuz, hautsi.

Kapitainak hitza **eten** zion kontalariari: [...]. Josu Zabaleta

Gauza bat pentsatu dut, Beatriz - **eten** zion osabak guregana hurbilduz-. Bernardo Atxaga

Kontakizunaren haria **eteteko** dudan joera berritsuarengatik. Anjel Lertxundi

Buruzagiak beren hitzaldiak **eten** eta txintik esan gabe gelditzen ziren. Elizen arteko biblia

Taxilariak gogoetaren haria **eten** zion, bide zaharretik ala autobidez joango ziren galdetu zuenean. Ramon Saizarbitoria

Arnasa **eten** zitzaion. Jose Morales

Gizonaren ipurdi eta gerri mugimenduak **eten** ziren bat-batean. Itxaro Borda

Hiletak amaiturik, emakumeen negarra **eten** eta Théoden azkenean tumulu azpian atsedenean eta bakean geratu zenean, jendea Urrezko Jauregiaren ondoan bildu zen oturuntza handia eginez tristura baztertzeko. Agustin Otsoa

Raimundo Silva, taxiak zeraman bitartean, pentsamendu-jario honetan abandonatu zen, eta une honetara iritsirik, **eten** egin zuen jarioa. Jon Alonso

-Zein adiskide? - **eten** zion Habibik-. Jon Muñoz

-Iraultza guztiak dira bortitzak - **eten** zidan-. Alberto Ladron Arana

-Gernikakoa gertatu gabe zegoen - **eten** zidan bisitariak. Bernardo Atxaga

Horra iritsirik, barne-solasa **eten** eta pentsakor geratu zen Txitxikov. Jose Morales

Chuqueten testua **eten** zuen Léak: [...]. Jon Muñoz

Ahots metaliko batek **eten** zien bat-batean jarduna. Jon Muñoz

Jarduna **eten** zion bere buruari Ruche jaunak, esan behar zuenak eragin handiagoa izan zezan: [...]. Jon Muñoz

Kontuan izango dut zure aholkua -esan eta komunikazioa **eten** egin zuen. Migel Angel Mintegi

Andoni Arrietaren ezusteko sartzeak hitz etorria **eten** zion. Migel Angel Mintegi

Berak uzten ez, baina, irakurketa **eten** niezaion. Joxe Austin Arrieta

Ez dezala telefonoak orain hots egin, ezerk ez dezala une hau **eten** berez bukatzen den arte. Jon Alonso

Horrek **eten** egin zion gogoeta jarioa. Migel Angel Mintegi

-Maizak **eten** zuen isilaldia. Migel Angel Mintegi

Nire ezagun guztiak, edo hil egin dira, edo **eten** egin dituzte nirekiko harremanak. Jose Morales

Nathanielek beste mundu batekoa zirudien ahots ilun batez **eten** zuen isiltasuna: [...]. Anjel Lertxundi

Negoziaketak **eten** egin ziren bolada batez. Jokin Urain

Eskuizkribua **eten** egiten da hemen. Jose Morales

Eten egin zitzaion arnasa bularrean. Jose Morales

Ez zuten haurdun geratu nahi, ustekabean harrapatu ditu, eta ez dakite nola gertatu zaien; haurdunaldia **eten** egin nahi dute. Luis Elberdin

Oraingoan Miami eta Yucatango Meridan barrena noa, han ia egunero baitago Caracaserako lotura, baina Meridan **eteten** dut hegaldia. Joxe Austin Arrieta

Hogeiren bat minutuz **etengo** da antzezpena. Josu Zabaleta

Obrak ia urtebetez **etengo** zirela jakin genuenean, ezin genuen sinetsi. Edurne Elizondo

Estrategia hori zorrotz aplikatu zuen NDFk, baina alde txar bat zuen, jakina, herrialde zordunen hazkundea **etetea** hain zuzen. Koro Navarro

Arreta eta interesaren isuria **eteten** zen bakoitzean, berehala nabarmentzen ziren Bennetten tik eta errepikapenak. Xabier Olarra

Adelari arnasa **eten** zitzaion, zerbait eztarrian trabatzen zaizunean bezala, ez atzera ez aurrera. Juan Kruz Igerabide

Dolarraren beherakada **eten** egin zen, eta Estatu Batuen eta haien kideen arteko desoreka koiunturala izan zuen ondorio bakarra. Koro Navarro

Aurrerapen ekonomikoak ordea ez zuen Egiptoren periferizazio-prozesua **eten**. Koro Navarro

Eten ezinezko maitasun lokarriz elkartua zegoen aingeruekin, hauek. Askoren artean

Neska mintzatu zitzaion, pausoa **eten gabe**, mutila baino tonu bareagoan: [...]. Unai Iturriaga

-Josefinak ez zian nahi -Ximurrak, mintzoa **eten gabe**, hirugarren martxa sartu zuen brastako batez-. Aingeru Epaltza

Iran Moskurekin negoziatzeko prest, baina ikerketa nuklearrak **eten gabe**. Berria - Mundua

Euskarazko euskara zein izan den eta den jakin dezagun, tradizioa **eten gabe**, besteren erdara gehienetan bakarraren tradizioari erreguka eta belauniko papurrak eskatzen ibili gabe. ik beherago 5. Berria - Harian

3 (adizlagunekin)

Beste kafe bat ekartzera noa -nahita **eten** zuen bakarrizketa itxura hartzen ari zen solasaldia, emakumeak ondorioak atera zitzan. Migel Angel Mintegi

Baina orain bere loa kezkatua zen, laster **eten** egingo ziotela berriz igarri bailuen, eta halaxe gertatu zen. Jon Alonso

Aspaldidanik duzu hautsia uztarria, aspaldidanik **etenak** nirekiko lokarriak. Elizen arteko biblia

Merkataritza-kapitalismoaren lehen goraldi hau bat-batean **eten** zen XIV. mendearen erdian. Koro Navarro

Hizketa ziplo **eten** zuen, Saget andereñoa sartzen ikustean. Karlos Zabala

Tupustean **eten** zuen Ruche jaunak irakurketa. Jon Muñoz

Bertantxe **eten** ziren elkarrizketa guztiak. Jose Morales

Zakar **eten** zion hitza Perrettek: [...]. Jon Muñoz

-Ez zuen susto makala hartu marinel hark, horrela iratzartu zenutenean -umoretsu **eten** zidan bisitariak. Edorta Jimenez

Adiskide haiekikoa haustea erabaki zuen, eta nahikoa zakarki **eten** zituen harreman haiek. Jose Morales

Bi segundo geroago, ordea, berriro **eten** zioten lana, oraingoan Woodek. Iñaki Mendiguren

Egunean-egunean gehixeago estutzen ninduen, soka bat tenkatuz bezala, ea noiz **eteten** zen. Juan Kruz Igerabide

Mendi itzelek burua tentetzen zuten mendebaldetik, ustekabean **eteniko** katean, ibaia oztopo handi batera amildu izan balitz bezala. Agustin Otsoa

4 (era burutua izenondo gisa)

Denetarik entzuten zen han: danborra, flauta, eta zakurraren zaunkaren antzeko hots **eten** bat ere bai. Jose Morales

Gurpilek, azkar jiratuz, hots **etena** ateratzen zuten burdinbidean; bagoiak lasterka zihoazen, errail estuetan jauzi txikiak eginez. Jose Morales

Honela esan zuen logelako isiltasun eta bakardadean, ozenki eta baxu-ahots **etenaz**: [...]. Jose Morales

-Dumbledorek kontratatu zintuenean, bazekien gizotsoa zinela? -galdetu zion Ronek hitz **etenez**-. Iñaki Mendiguren

-Mila esker, Sam -esan zuen xuxurla **etenean** -. Agustin Otsoa

Oihu **eten** bat espero zuten, norbaiten ahotsa, zarataren bat. Jose Morales

5 *eten gabe* adlag ik **etengabe**.

Eten gabe iradokitzen diguzu zure izaera zein den eta zeinen handia zaitugun eta sorkarien edertasunak zure lorratza baino ez direla. Imanol Unzurrunzaga

Autoek, gidariaren aginduari muzin eginez, aurrera jarraitzen zuten, martxa **eten gabe** , inork ez daki ongi nora. Karlos Linazasoro

Bere loa **eten gabe** entzun ere ez zidan egingo gaixoak baina, bat-batean, irriño bat egin ote zidan iruditu zitzaidan bere gelarako ilunpetako bidean. Hasier Etxeberria

-Hi, beltza -esan zuen lasai zaharrak, barrea **eten gabe** -, nongo diruaz joaten hintzen dibertitzera iaz? Josu Zabaleta

Bazterketa mundu guzian eta garai guzietan **eten gabe** errepikatzen den istorio bat da. Herria

Bitarte horretan, airea **eten gabe** ateratzen da sudurretik. Lourdes Oñederra

Amore eman ez nezan eta azken hari ahul hura **eten gabe** gera ez zedin. Imanol Unzurrunzaga

Orduko su-etena hautsita, gatazkaren kiribilean sartu ginen berriro, gurpil zoroari **eten gabe** jiraka. Txema Ramirez de la Piscina

Produktu eskaria handitzen zen garaietan, gau eta egun, **eten gabe** , txandaka aritzen ziren. Iñaki Heras

Hilabete eta erdian, **eten gabe** , izen gabeko eskutitzak jaso zituen. Gotzon Garate

Internet sarean Komunikazio zirikalariaren eremua egunero zabalduz doa, **eten gabe** . Txema Ramirez de la Piscina

Espainiako botere judizialaren txostenak baieztatu egin du emakumeen aurkako biolentzia gora doala **eten gabe** . Berria - Euskal Herria

Gogor eutsi dio suminari, **eten gabe** gorrotoari. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

akordioa eten (4); **aldiz eten** (9); **aldiz eten behar** (4); **arnasa eten** (12); **arte eten** (6); **arteko harremana eten** (4); **arteko harremanak eten** (4); **aurretik eten** (5); **baina eten** (8); **bat batean eten** (7); **bat eten** (11); **batean eten** (10); **batek eten** (21); **batek eten zuen** (6); **batez eten** (8); **batez eten zuen** (4); **beherakada eten** (4); **berak eten** (5); **bere jarduna eten** (5); **berehala eten** (6); **berriro eten** (7); **berriz eten** (5); **bidea eten** (6); **bilkura eten** (4); **bolada ikusgarria eten** (4); **bolada ona eten** (5); **bolada txarra eten** (15); **da eten** (15); **dela eten** (8); **diplomatikoak eten** (4); **dira eten** (12); **diru laguntzak eten** (7); **du eten** (7); **ekoizpena eten** (6); **elkarrizketa eten** (6); **elkarrizketak eten** (7); **epaiketa eten** (8); **erabat eten** (10); **erasoak eten** (15); **ere eten** (18); **ere eten egin** (6); **esaldia eten** (4); **eta berriz eten** (5); **eta eten** (30); **eta eten egin** (12); **eten ahal** (8); **eten ahal izateko** (6); **eten akordioa** (5); **eten arte** (7); **eten aurretik** (5); **eten barik** (12); **eten behar** (56); **eten behar izan** (26); **eten beharko** (4); **eten beharra** (9); **eten beharrean** (10); **eten da** (18); **eten daiteke** (5); **eten dio** (9); **eten dira** (4); **eten ditu** (14); **eten dituzte** (8); **eten du** (57); **eten dute** (25); **eten edo** (4); **eten egin** (252); **eten egin behar** (31); **eten egin da** (15); **eten egin du** (16); **eten egin dute** (4); **eten egin nahi** (4); **eten egin nion** (5); **eten egin nuen** (4); **eten egin zen** (29); **eten egin zion** (16); **eten egin ziren** (11); **eten egin zituen** (11); **eten egin zuen** (36); **eten egin zuten** (18); **eten egingo** (22); **eten egiten** (34); **eten egiten da** (9); **eten egiten du** (5); **eten ere** (5); **eten eta** (103); **eten ez** (14); **eten ezean** (6); **eten gabe** (59); **eten izanak** (4); **eten nahi** (34); **eten nahi du** (10); **eten nahi izan** (6); **eten nion** (10); **eten nuen** (12); **eten ondoren** (12); **eten zaio** (5); **eten zen** (38); **eten zezakeen** (4); **eten zidan** (38); **eten zidan bisitariak** (7); **eten zien** (6); **eten zion** (90); **eten zion bere** (4); **eten zion jarduna** (5); **eten zion kristok** (4); **eten zioten** (5); **eten ziren** (16); **eten zituen** (40); **eten zituzten** (10); **eten zitzaion** (6); **eten zuela** (5); **eten zuen** (186); **eten zuen arte** (4); **eten zuen atzo** (7); **eten zuen isiltasuna** (4); **eten zuena** (4); **eten zuenean** (7); **eten zuten** (32); **ez da eten** (13); **ez dela eten** (4); **ez dira eten** (10); **ez eten** (4); **ez zen eten** (4); **ez zuen eten** (4); **gabe eten** (6); **gogoeta eten** (4); **guztiak eten** (22); **guztiz eten** (4); **haria eten** (9); **harreman diplomatikoak eten** (4); **harremana eten** (19); **harremanak eten** (19); **harremanak eten nahi** (4); **harremanak eten zituen** (4); **haurdunaldia eten** (16); **haurdunaldia eten ahal** (4); **hilabetez eten** (5); **hitza eten** (7); **hori eten** (10); **hornidura eten** (4); **horniketa eten** (4); **hornikuntza eten** (4); **horretan eten** (5); **hortxe eten** (4); **hura eten** (6); **ikusgarria eten** (4); **inoiz eten** (5); **iragarritako su eten** (9); **isiltasuna eten** (5); **jarduera eten** (8); **jarduerak eten** (5); **jarduna eten** (21); **jarduna eten zion** (5); **jarduna eten zuen** (4); **jarioa eten** (4); **kanpaina eten** (4); **komunikazioa eten** (4); **kontratua eten** (22); **kontratua eten du** (4); **kontratua eten eta** (4); **laguntza eten** (4); **laguntzak eten** (9); **lana eten** (7); **lanak eten** (10); **lanak eten egin** (4); **loa eten** (4); **lotura guztiak eten** (4); **musika eten** (6); **negoziazioak eten** (10); **nola eten** (4); **ona eten** (5); **oro eten** (4); **prozesua eten** (14); **saioa eten** (6); **soka bat eten** (5); **soka eten** (5); **solasa eten** (15); **solasa eten eta** (4); **txarra eten** (15); **txarra eten nahi** (4); **zen eten** (6); **zerbitzua eten** (7); **zuen eten** (8); **zuen kontratua eten** (8)

arnasa etenda (6); **arnasa eteten** (6); **arte etetea** (5); **arte etetea erabaki** (4); **aurreratuak etetea** (4); **auzia eteteko** (4); **batasunaren jardueren etetea** (7); **da etengo** (4); **da eteten** (4); **epaiketa etetea** (5); **erasoak eteteko** (6); **ere etenda** (4); **etenda dago** (10); **etenda daude** (17); **etenda daudela** (5); **etenda egon** (15); **etenda egon zen** (5); **etenda geratu** (20); **etenda geratu zen** (5); **etenda geratu ziren** (6); **etenda zeuden** (5); **etengo ditu** (7); **etengo dituztela** (4); **etengo du** (6); **etengo duela** (4); **etengo ez** (5); **etengo zituela** (4); **etetea beste** (5); **etetea erabaki** (49); **etetea erabaki du** (11); **etetea erabaki dute** (4); **etetea erabaki zuen** (18); **etetea erabaki zuten** (4); **etetea ere** (4); **etetea eskatu** (4); **etetea eta** (8); **etetea lortu** (4); **eteteko agindu** (7); **eteteko agindu zuen** (4); **eteteko asmoa** (5); **eteteko asmorik** (6); **eteteko asmoz** (4); **eteteko aukera** (7); **eteteko erabakia** (9); **eteteko erabakia hartu** (4); **eteteko ere** (4); **eteteko eskatu** (42); **eteteko eskatu dio** (10); **eteteko eskatu du** (4); **eteteko eskatu zion** (8); **eteteko eskatu zuen** (7); **eteteko eskatu zuten** (5); **eteteko eta** (5); **eteteko prest** (5); **eteteko zorian** (4); **eteten bada** (5); **eteten da** (12); **eteten den** (8); **eteten denean** (5); **eteten duen** (5); **eteten dute** (7); **eteten ez** (9); **eteten saiatuko** (5); **eteten saiatuko da** (4); **eteten zen** (15); **ez da etengo** (4); **ez etetea** (9); **ez eteteko** (9); **gabeko haurdunaldia eteteko** (4); **geroztik etenda** (5); **guztiak etetea** (4); **harremana etetea** (6); **haurdunaldi aurreratuak etetea** (4); **haurdunaldia etetea** (13); **haurdunaldia eteteko** (20); **hori etetea** (4); **hori eteteko** (6); **hornidura etengo** (5); **indarkeria etetea** (8); **indarkeria eteteko** (4); **jarduera eteteko** (7); **jarduerak etenda** (7); **jarduerak etetea** (4); **jarduerak eteteko** (7); **jardueren etetea** (17); **jardueren etetea beste** (5); **jarduna etenda** (4); **jarduna eteteko** (5); **jarduna eteten** (4); **jarioa eteteko** (5); **kontratua etetea** (9); **kontratua etetea erabaki** (5); **kontratua eteteko** (9); **laguntzak etengo** (4); **negoziazioak etenda** (7); **negoziazioak etengo** (5); **prozesua etetea** (4); **prozesua eteteko** (5); **urriaz geroztik etenda** (4)

---

eten[2] *iz* jarraitasuna etetea; etete horren ondorioa. ik **etendura**.

Iberia duk Sephar; Gaztela, Galizia, Portugal, Nafarroa galdua, horiek denak - **etena** egin zuen, aletzen ari zen izenen kontuaz nekaturik, itxuraz-. Edorta Jimenez

Miloko betelana egiten ari zen Salomon eta bere aita Daviden Hiriko harresietako **etena** ixten. Elizen arteko biblia

Baina tentsioak ez du **etena** esan nahi. Askoren artean

Ostegunetako **eten** hori gabe astea basamortua bezain idorra da. Oskar Arana

Eten bat izan zen, zaratek konmutazioren bat salatzen zuten, antza, nahikoa denbora izan zen Raimundo Silvak pentsatu ahal zezan, Maria Sara du izena. Jon Alonso

Kontaketan **eten** bat egin beharra izan nuen. Edorta Jimenez

Raimundo Silvak **eten** bat egin zuen, esateko, Guialdoren bere ahaideen eta adiskideen konbertsioa deskribaten duen lerroaldea dator ondoren. Jon Alonso

Hala hedatzen ditugu zubiak, konpontzen edo moldatzen ditugu hausturak, bizitzako **eten** handiak, oroimenaren bidez eta, hortik harago, mitoaren eta artearen bitartez. Xabier Olarra

Bazegoela, bestalde, irudi batetik bestera pasatzea, **eten** handirik gabe. Jon Muñoz

Eten labur bat egingo dut hemen, galdera bat egiteko. Koro Navarro

Oroitzapen horiei dagokienez, ez zegoen **eten** zorrotz bat, baizik eta denbora-gradiente bat, eta, hala, 1966 eta 1967ko gertaerak osorik zeuzkan gogoan, 1968 eta 1969koak partez edo tarteka, eta 1970etik aurrerakoak, berriz, ia erabat ahaztuak. Xabier Olarra

Oraingoz ez da azken punturik izango, **eten** bat baizik, iragarri dion bisita iristen den arte. Jon Alonso

Zergatik **eten** hori? Jon Muñoz

Erretorika klasikoan, diskurtsoaren mintzotik kanpoko osagaiak -keinuak, mugimendua, ahotsaren tonua eta intentsitatea, **etenen** kudeatzea, eta abar- aztertzen ziren gunea zen *actioa*. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Erlojuak **etenik** gabe jotzen zituen orduak, isiltasun erabatekoa urratuz. Jose Morales

Gero elurra hasiko da, emaro, **etenik** gabe. Joseba Sarrionandia

Gaixotasun hark jotakoak, astiro baina **etenik** gabe, amets gero eta sakonagoan erortzen ziren, eta geroago isiltasunean eta hotz hilgarrian, eta azkenik hil egiten ziren. Agustin Otsoa

Jainkoak **etenik** gabe ekiten eta maitatzen du, ekitea da Jainkoaren izatea, bere esentzia, bere bizia, bere zoriontasuna. Joan Mari Lekuona

Etenik gabea balitz, ez nuke dudarik betiko bizia izendatzeko. Joan Mari Lekuona

Miragarria da nolako **etena** gertatu zen nire bizi iturrietan, miragarria zenbateraino irauli zen nire pentsamendu arruntenaren nolakotasuna. Koro Navarro

Errazago gertatzen da **etenik** gabeko ß ahoskatzea bokal artean. Lourdes Oñederra

Doinua bera izaten da **eten** -hausteen salatzailerik behinena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ohartarazi dugu gizakiaren aurrerabide espiritualean hurrenez hurren izandako mugarriak -Abraham, Moises, profetak eta Kristoren izena dutenak- zibilizazio sekularraren ibilbidearen behatzaileak bidezulo eta zirkulazio- **etenak** ikusiko lituzkeen puntuetan daudela guztiak. Iñaki Mendiguren

Arau horiei esker, margotutako espazio-eskalak margotua ez den eszena batek eragiten dituen luminantzia eta kolore- **etenen** antzekoak eragin ditzake erretinan Josu Zabaleta

2 *su-eten* *(orobat* **sueten** *g.er.)* *iz*

Martxoak 22, 2006; ETAk **su-eten** iraunkorra iragarri du. Joseba Zulaika

Su-eten iraunkorra deklaratu du ETAk martxoaren 24an. Rafa Egiguren

ETAri, hitzez hitz, **su eten** zabal eta iraunkor bat aldarrika dezala. Joxerra Garzia

Dauka ere gisa hortako urratsik ezin egin dela ETA-ren beste **su-eten** bat gabe. Herria

Apirilaren 8an sinatu zuten **su-etena** Gobernuak eta gerrillariek. Berria - Gaiak

Bi aldeek **su-etena** hitzartu eta errespetatu zuten bi hilabetez, eta bost bilera formal egin. Berria - Harian

Hildakoei lur emateko **su-eten** armatua. Xabier Olarra

Burkideekin hitz egin, eta, **su-eten** bat aprobetxatuz, beste aldera pasatzea. Inazio Mujika Iraola

su-etena indarrean sartu eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Argi zegoen **su-eten** moduko hark ezin zuela oso luzaro iraun. Alberto Ladron Arana

Mornatar gerlari batek ez luke **su etena** hautsiko biscaynetar txakur bat hiltzeko. Joanes Urkixo

Su etena bukatu ondoren, biolentziak inoiz baino indar handiagoarekin segitu zuen. Pello Salaburu

Su-etena onuragarria izango da garapen ekonomikoa areagotzeko eta enpresak erakartzeko. Berria - Ekonomia

Beraz **su-eten** berri baten alde biltzen hasi dira euskal kulturako ekintzaile batzuk. Herria

ETA-ren **su-eten** denboran. Herria

3 irud/hed

Salmenten balizko **su-etenak** ere karikatura baten itxura du. Berria - Ekonomia

Monikek pentsatzen zuen ez zela argitasuna soilik, baizik eta horizontaltasunak berez inposaturiko **su-etena**, botere oreka. orain ohartzen da ezeroso sentitu zela bide osoan, Nerea eta Sebasen despedidako muxuak suposaturiko **su-etenean** izan ezik. Eider Rodriguez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

su eten (272); **su eten akordioa** (5); **su eten bat** (23); **su eten batek** (4); **su eten batekin** (3); **su eten baten** (12); **su eten bati** (3); **su eten eskaintza** (8); **su eten garaian** (10); **su eten hau** (5); **su eten iragarpena** (6); **su eten iragarpenaren** (3); **su eten iraunkor** (6); **su eten iraunkorra** (58); **su eten iraunkorrak** (19); **su eten iraunkorrarekin** (5); **su eten iraunkorraren** (17); **su eten luze** (4)

[3] armatuen etenaldi (9); **armatuen etenaldi iraunkorra** (8); **armatuen etenaldia** (6); **asteko etenaldia** (3); **asteko etenaldiaren** (5); **asteko etenaldiaren ondoren** (3); **batasunaren jardueren etenaldia** (3); **beste etenaldi** (3); **beste etenaldi bat** (3); **bi asteko etenaldiaren** (3); **ekintza armatuen etenaldi** (9); **ekintza armatuen etenaldia** (6); **ekintzen etenaldia** (4); **eta etenaldi** (8); **eta etenaldi bat** (3); **eta etenaldiak** (4); **etenaldi bat** (23); **etenaldi bat egin** (10); **etenaldi batean** (4); **etenaldi baten** (7); **etenaldi baten ostean** (4); **etenaldi hain** (6); **etenaldi hain luzeak** (4); **etenaldi iraunkorra** (11); **etenaldi iraunkorraren** (4); **etenaldi labur** (6); **etenaldi labur bat** (3); **etenaldi laburra** (3); **etenaldi luze** (5); **etenaldi luzea** (5); **etenaldi luzea izan** (3); **etenaldia egin** (12); **etenaldia egin nuen** (5); **etenaldia gertatu** (3); **etenaldia izan** (4); **etenaldia ukanen** (5); **etenaldia ukanen du** (5); **etenaldiak mesede** (3); **etenaldiaren ondoren** (20); **etenaldiaren ondotik** (6); **etenaldiaren ostean** (14); **etenaldirik gabe** (6); **gustuko etenaldi** (3); **gustuko etenaldi hain** (3); **hiru urteko etenaldiaren** (4); **jardueren etenaldia** (3); **urteko etenaldi** (3); **urteko etenaldia** (3); **urteko etenaldiaren** (10); **urteko etenaldiaren ondoren** (6)

---

etenaldi 1 *iz* zerbait eteten den aldia.

Erronda hura amaitu zenean, **etenaldi** bat izan zen. Interes tasen igoeran **etenaldia** egin dezake Bernankek. Irene Aldasoro

Iruzkinik edo zuzenketarik egiteko parada emateko asmoz, **etenaldi** bat egin zuen. Migel Angel Mintegi

Saget andereñoak **etenaldi** bat egin zuen, galderaren bat egingo zioten zain. Karlos Zabala

Horiek horrela, **etenaldi** bat egon daiteke egimenean, baina sekula ez esentzian, ongi prestatua baldin badago. Joan Mari Lekuona

Bigarren mundu gerrak **etenaldia** ekarri zuen aktorearen lanean. Berria - Kultura

Astearteko auzi saioan Batasunaren jardueren **etenaldia** beste bi urtez luzatu ala ez erabakiko dute. Berria - Euskal Herria

Ez dakit... - **etenaldi** bat egin zuen, hitzak neurtzeko edo, jarraitu baino lehen. Migel Angel Mintegi

Etenaldia amaitu eta programak bere martxa jarraitu zuen gero. Karlos Linazasoro

Abenduaren 3an bukatu zen **etenaldia**. Berria - Harian

Gizon zaharrak hasperen egin eta, **etenaldi** baten ostean, esan zuen: [...]. Anton Garikano

Etenaldiaren ondoren, ariketekin segitu nuen, nire buruari behin eta berriro agintzen niolarik: Zaildua behar duk egon, diziplinatua behar duk izan. Anjel Lertxundi

Galdetu nion: "Nondik zatoz?", eta berak erantzun, berriz ere, amaiezina zirudien **etenaldiaren** ostean: "Budapestetik...". Urtzi Urrutikoetxea

Sentitzen dut hizpidea atera izana - **etenaldi** baten buruan, zera erantsi zidan- Dena den, jakin ezazu harro nagoela zutaz, zure ideien alde armak hartu zenituelako. Alberto Ladron Arana

Ekintza armatuen **etenaldia** gaur gauerdian jarriko da indarrean. Berria - Harian

Presidente berriak ordu erdiko **etenaldia** egiteko eskatu du. Berria - Mundua

Espainiako Alderdi Sozialistako (PSOE) presidenteak agerraldi luzea egin zuen Kongresuan hogei eta hamar minutuko bi **etenaldi** egin zituen. Berria - Mundua

Etenaldi batean, piano tristea entzun da. Xabier Paya

Osteak **etenaldia** egin zuen. Agustin Otsoa

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Arabak **«etenaldi** sozial, ekonomiko eta finantzarioa» izango du, PPk ez duelako behar bezala kudeatzen Aldundia. Ekolalia 1974an hasi zitzaion Bennetti, eta halaxe jarraitu du, **etenaldi** nabarmenik gabe, hamazazpi urtez. Berria - Euskal Herria

Bertan **etenaldi** laburra egin zuen, eta berandu zetozen hirurogei zaldizkorekin sendotu zuen armada. Agustin Otsoa

Barkatuko ahal didazu, jaun André, baldin bertze **etenaldi** labur bat egiten badut hemen...! Joan Mari Irigoien

Ez ditugu gustuko **etenaldi** hain luzeak, jokatzea gustatzen zaigu, lehiatzea. Berria - Kirola

Bi pilotariek **etenaldi** ugari egin zituzten: bai ura edateko, bai erremontea berriro lotzeko. Berria - Kirola

Joan den asteazkenean ETAk iragarri **etenaldi** iraunkorrak hainbat ikara baztertu du. Berria - Euskal Herria

Apneak arnas hartze behartu bati jarraikion arnasketaren **etenaldi** iragankorra dituztenek ezin dute lo sakon egin. Berria - Gaiak

Etenaldi erabatekoa eta iraunkorra egon dadin berriro. Berria - Mundua

Hotelerantz ninderaman Williamsek, eta nik orduan azaldu nion, zera, pentsatzen ari nintzela, agian, **etenaldi** koxkor bat ez letorkidakeela gaizki, oporraldi labur bat, alegi. Joxe Austin Arrieta

Irakasle zaharrak **etenaldi** larri bat egin zuen, pipa hautsontziaren gainera husten zuen bitartean. Alberto Ladron Arana

Etenaldi ezerosoa. Xabier Paya

Badirudi Japoniako ekonomia azken hamar urteotan murgildurik zegoen **etenaldi** ekonomikotik ateratzeko egindako urratsek ondorio baikorrak dituztela. Berria - Ekonomia

Badiolak jakinarazi du une honetan portuan lotuta daudela alturako ontziak, **etenaldi** biologikoa dela eta. Berria - Ekonomia

Bat-bateko **etenaldiagatik** baino gehiago, jasotako ustekabeagatik. Ibon Uribarri

Epaiketaren **etenaldian**. Koldo Izagirre

Neguko **etenaldiaren** ostean, atzera arrantzan joan ziren atzo baxurako euskal ontziak. Berria - Ekonomia

Gabonetako **etenaldiaren** ondotik lehenengoz bildu ziren CCOO eta UGT eta CEOE Espainiako patronala lan erreformaren inguruan eztabaidatzeko, baina ordubeteko bilerak ezer gutxirako eman zuen. Berria - Euskal Herria

Har dezagun gaur bazkalordua, eguerdiko **etenaldian**. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Izarrek **etenaldi** egoera honetan aurrera egiteko tresnarik egokiena arbitraia dela adierazi du. Berria - Ekonomia

Erietxean bost eguneko lan **etenaldia** eman diote. Berria - Euskal Herria

---

etenalditxo *iz adkor* etenaldi txikia.

Harry saiatu zen Gryffindorreko zutoinetarantz itzultzen; Woodi jokoaren **etenalditxo** bat eskatzeko asmoa zuen. Iñaki Mendiguren

Palan ari ziren gazteek gustura egin dute **etenalditxo** bat. Berria - Euskal Herria

Puntu horretantxe **etenalditxo** bat egin nahi nuke nire buruari dagozkien kontuekiko, garrantzitsua baiteritzot oso ikusleen kontzientzia lozorrotuaren gainean egindako aipamena argitzeari eta luzetxoago azaltzeari. Karlos Linazasoro

Baina Mirenena gertatu eta gero... -**etenalditxo** bat egin zuen, une batez gogoetan sartuta egoteko-. Migel Angel Mintegi

Iruñean bezala, berandu hasi zuen kontzertua, eta, ohi duenez, **etenalditxoa** egin zuen erdian. Berria - Kultura

Etenalditxoa amaituta epaileak guardiak lekukoak kazetariak entzuleak aretora barriro etorriak zirelarik, atea zarratzerakoan, zango batek traba egin zuen kanpotik eta barrukoen bultzadaz hanka jausi zitzaion belaunetik. Koldo Izagirre

Sukaldari krudela, emazu atseden, // su **etenalditxo** bat, laburra bederen! Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etenalditxo bat** (6); **etenalditxo bat egin** (3)

---

etenarazi, etenaraz(i), eteneraz*ten* *(orobat **etenerazi** g.er.)* du *ad* etetera behartu.

Sherman jeneralaren urrezko estatuak arreta **etenarazi** zion. Lopez de Arana

Zerbaitek **etenarazi** zuen ene jarioa. Aingeru Epaltza

Borabiderik gabeko bikoteek ohi dutenez, bion artean tarte zabala uzten genuelarik, jendea ugari gurutzatzen zitzaigun erditik, solasa **etenaraziz**. Ramon Saizarbitoria

Besarkatu eta estutu egin ninduen, arnasa **etenarazteraino**. Juan Kruz Igerabide

Neure esperientziak kontatzen nizkionean, entzuten zidan Sabethek, baina zahar bati entzuten zaion bezala: **etenarazi** gabe, adeitasunez, ez sinesmenik, ez berotasunik. Joxe Austin Arrieta

-Nondik nora jakin zenuen Benjamin argala eta hankandia zela? -**etenarazi** zidan bisitariak. Edorta Jimenez

Gehienez ere, berak kontakizunari aurrea hartuz **etenarazten** ninduen, aditzera emanez, hartara, lehendik ere kontatua niola noizbait. Joxe Austin Arrieta

Zortea izan nuen, orduantxe hutsik gelditu berria izaki, nonbait, kabina-klaseko kamarote bat... entzun zuen Ivyk nola ari nintzen erreserba agintzen, eta salto batean etorri zen niregana hura **etenaraztera**; baina nik ordurako aurikularra eskegia. Joxe Austin Arrieta

Fionnek esku bat lepoan ipini zion, **etenaraziz**. Joanes Urkixo

Askok salatu zuten Londresek arrazoi politikoengatik erabili zuela kasua, eta ikerketak aurrera jarraitzerik nahi ez zuelako **etenarazi** zuela auzibidea. Berria - Mundua

Agintariek atzerriko zorraren parte baten luzamendua iragarri zuten orduan, NDFren krediduak **etenarazi** zituena. Koro Navarro

Angelusak **etenarazitako** exekuzio haiek, zein gogoangarriak gertatzen zaizkion borreroari! Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etenarazi zuen** (3)

---

etenbako *izlag/izond* etengabea.

Italiatik Arratira! errepikatzen zuen Idoiak txunditurik, bere aurreko bizitzako jaio eta bizilekuaz, ordura arte erabat ezezagun eta igarriezin zitzaionaz **etenbako** hausnarketan. Xabier Montoia

Heltzeko erabili behar izan zituen hamaika tren, autobus, taxi eta gainerakoetan ikusiriko izugarrikeria **etenbakoek** giza miseriaren edozein agerpeni aurre egiteko gauza bihurtuko zutelako ustea ustel gertatu zitzaion. Xabier Montoia

Coruñako harri landuzko kaleetan zebilen gurdi eta narria jario **etenbako** bizi-bizia ikusi besterik ez zegoen. Edorta Jimenez

Eta beste erabagi bat be hartu neban orduan: mendeku **etenbakoa** gauzatzea. Jon Arretxe

---

etendu *izond* etena, zatitua.

Mutikoak gorputz **etendua** inguratu zuen eta jario zuriz itsasoturiko haren sasiaren musukatzeari ekin zion. Itxaro Borda

---

etendura 1 *iz* etena, jarraitasuna etetea.

Egurraren **etendura** fin sakon batek eskekoak kaparantz luzatutako besoa, sorbalda, bular-aldea zeharkatzen zituen. Anjel Lertxundi

Maila bakoitzak bere hausturak ditu, bakoitzak berarena besterik ez den aletzea, eta zenbat eta mailarik sakonagotara jaitsi orduan eta luzeagoak izango dira **etendurak**. Xabier Arregi

Eta **etendura** bat eginez, eta niri besotik helduz: [...]. Txillardegi

Ez dezala inork irudikatu, itxurek nahastuta, historiaren diziplina batzuk jarraitasunetik jarraitasun-ezera iragan direla, eta besteak, berriz, jarraitasun-ezen nahasmendutik **etendurarik** gabeko batasun handietara iragan direla. Xabier Arregi

Eta **etendura** bat eginez, eta niri besotik helduz: [...]. Txillardegi

Emakumeak, orduan, sumindurak eragindako ahots lakarrez eta hitzen artean **etendurak** eginez, oihuka: [...]. Patxi Zubizarreta

AEBetako hauteskundeek **etendura** handia eragingo dutela iritzi du erakundeak. Berria - Ekonomia

Horregatik, askotan, belarriak kotoiez estaltzen ditu, lepo-hezurraren **etendura** hozkitsua edo sabeletik irteten den azken hatsaldi itoaren erregua ez entzutearren. Karlos Linazasoro

Azkenean, zalantzarik gabe, **etendura** erradikalenak hausturak dira. Xabier Arregi

Erlijioa zen agian **etendura** nabarmenena, baina ez bakarra. Joseba Zulaika

1990-2002 bitartean, nolabaiteko **etendura** izan zen hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren artean. Berria - Euskal Herria

Obra bakoitzean, liburu bakoitzean, testurik txikienean arazoa da, orduan, **etendura**-puntua berraurkitzea. Xabier Arregi

Urte hasieratik uztaila bitarteko hornikuntzaren kalitatea %18 hobetu zuen Iberdrolak, potentziaren araberako **etendura** denbora 1,04 ordutakoa izan baitzen. Berria - Ekonomia

Eraketa diskurtsiboa aldi berean agertzen da **etendura**-hastapen bezala diskurtsoen nahasketan, eta hustasun-hastapen bezala hizkuntzaren eremuan. Xabier Arregi

Bestalde, garai honetan digestio-**etendurak** ere gertatzen dira. Berria - Harian

Segurtasun arrazoiengatik, oso inportantea bide da argindar-**etendurarik** ez egotea Tetra martxan dagoen bitartean. Iban Zaldua

Nola onartu aldizkari hartan ipuina argitaratzeak, argitaletxearen ordainketa-**etendurarekin** zer ikusirik izan zezakeenik? Iban Zaldua

Asegarcek borondatezko hartzekodunen konkurtsoan lehen kiebra teknikoa edo ordainketa **etendura** izan zitekeena deklaratu zuen iragan asteazkenean, Bilboko Merkataritza Auzitegian. Berria - Kirola

Iragan urteko abuztutik ordainketa- **etendura** egoeran zegoen. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta etendurarik (3); **etendurarik gabe** (3); **etendurarik gabeko** (4); **haurdunaldiaren etendura** (3); **ordainketa etendura** (6)

---

etenerazi ik **etenarazi**.

---

etenezin *izond* ezin etenezkoa.

Nobela, egilearen esanetan, ez da jario **etenezina**. Berria - Kultura

Hain zuzen, zutaz pentsatzen ari nintzen, hil ondokoa hunen antzeko zerbait izan zitekeela, zuk zenion "unbroken wholeness" delakoa, alegia, osotasun **etenezina** -. Jose Angel Irigaray

Biak ere ez ziren froga oso erabakigarriak, baina ezkontza sakratuaren lotura **etenezinak** hautsita amorante batekin bizitzeak eta haurra nahita galtzeak emakumearen moraltasun eza adierazten bide zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bata besteari lokarri **etenezin** batez loturik zeuden. Xabier Olarra

Inorena baino eskubide handiagoa zen nirea; egia da lurrean zetzan gizon hura ez nuela ordu arte sekula ikusi, baina hiltzen ikusi izana lokarri **etenezina** zen niretzat. Anjel Lertxundi

Hain zuzen, zutaz pentsatzen ari nintzen, hil ondokoa hunen antzeko zerbait izan zitekeela, zuk zenion "unbroken wholeness" delakoa, alegia, osotasun **etenezina** -. Jose Angel Irigaray

Eta funtsezko lotura sortzen da ezaguera horretan, **etenezina**: nire gogoko -maitagarri, on, egia, eder- dela niretzat, beste maitagogoaren gogoko den oro. Jenaro Garate

---

etengabe 1 *adlag* etenik gabe. ik **eten**[1] **5**.

Etengabe, goiz eta arratsalde, erre-opariak eskaini behar zituzten aldarean. Elizen arteko biblia

Hori guztia gertatuko zaie nire hitzak aditu nahi izan ez dituztelako eta behin eta berriro, **etengabe**, bidali dizkiedan profetei jaramonik egin ez dietelako. Elizen arteko biblia

Guk guztiok edonon, nonahi, ordu oro eta noiznahi, egunero eta **etengabe**, sinets dezagun benetan eta apalki, bihotzean gorde eta maita dezagun, ohora, adora, zerbitza, gorets eta bedeinka, aintza eta goraipa, handiets eta esker dezagun Jainko betiko goi-goiko eta gorena, Hirutasuna eta Batasuna, Aita eta Seme eta Espiritu Santua. Askoren artean

Etengabe eta suharki, euskal historia ikertu du, bai eta ere erakatsi eta maitarazi haur eta publiko zabal bati. Herria

Kaleak poliziaz bete dira, **etengabe** dabiltza polizia autoak batetik bestera. Berria - Harian

Bide horretan, **etengabe** urratu dituzte eskubide sozial eta politikoak. Berria - Harian

Etxeetako tximiniek **etengabe** botatzen zuten kea. Berria - Harian

Hain zaharra, hain erikorra, hain ahula, eta beti ibiltzen, **etengabe** ibiltzen, beti hegan, beti jendeaz arduratuta. Jose Morales

Unibertsoa **etengabe** hedatzen ari da eztandaren ondorioz. Joxerra Garzia

Zelula amak **etengabe** haztea lortu beharko lukete, erietxeetako erretserbak **etengabe** hornitzeko. Berria - Gaiak

Ruizek azpimarratu zuen D ereduak **etengabe** egin duela gora. Berria - Euskal Herria

Jaiki baino lehenago, gelako isilean, itsas orroa azkartzen ari, hausnartutako ideia hauek **etengabe** nerabilzkielarik, jantzi, eta Seiabide 3rantz abiatu nintzen. Txillardegi

Mukia **etengabe** zerion musupetik. Gotzon Garate

Etxeko telefonoak **etengabe** jotzen zuen. Koro Navarro

Donibane Garaziko elkarteek GARAZIQUE 2005 musika ekitaldia antolatzen dute, egun nagusia izanen delarik ekainaren 12an igandearekin, Musika **etengabe** 12 orduz, eguerditik gauerdi arte, pilota plaza gibeleko Lucia pasealekuan. Herria

Etengabe mugitzen zen, ozen hartzen zuen arnasa, eztul egiten zuen, hilotzaren antzik txikiena ere ez izatearren, malguki kirrinkarien eta burusi zurrumurrutsuaren hots biziaz inguratzen zen. Jose Morales

Bertsolariaren funtsezko osagaia ez da formulen errepertorioa, formula berriak **etengabe** sortzeko gaitasuna baizik. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egoitzaz **etengabe** aldatu beharrean zegoen, ordea, Nizamen gizonengandik ihesi. Jon Muñoz

Badakigu, esate baterako, braillez irakurtzean hatz bat **etengabe** erabiltzeak hipertrofia izugarria dakarrela garun-azalean hatzak duen aztarnan. Xabier Olarra

Egoteko isilik esan zion Lasak, borondate onenarekin, oinazean entretenigarri gertatzeko asmoz, **etengabe** hitz egiten zuen ezjakin hari. Ramon Saizarbitoria

Adimenez barea, gogoz gozoa, espirituz neurritsua, kontenplazioan jasoa, otoitzari **etengabe** emana eta gauza guztietan sutsua. Askoren artean

Hunkigarria da ikustea nola Klarak **etengabe** baieztatzen duen Frantziskorengandik hartu duen bizimoldeari -erabateko pobretasunari bereziki- gorde nahi dion atxikimendua eta leialtasuna. Askoren artean

Ez dut beti auzitan jardungo, ez naiz **etengabe** haserre egongo. Elizen arteko biblia

Zahardadearen tormentuetako bat da, karkaxa eta eztularekin batera, haria **etengabe** galtze hau. Anjel Lertxundi

Ez digute mundu hori ematen: guk geuk egiten dugu geure mundua **etengabe**; esperientzia, kategorizazioa, oroimena eta loturak baliatuz, hain zuzen. Xabier Olarra

Gogoan du **etengabe** bere ituna, mila gizalditarako hitz emana.

Benaias eta Jahaziel apaizek **etengabe** jotzen zuten turuta Jainkoaren itun-kutxaren aitzinean. Elizen arteko biblia

56 urte pasa ditu **etengabe** soinua jotzen. Pako Aristi

Zelula **etengabe** ari da proteinak sintetizatzen eta ezabatzen. Berria - Gaiak

Hizkuntza **etengabe** ari baitzaigu erakusten jakitea, zinezko jakitea, ez dela ahaztea besterik. Iñaki Segurola

Entzuten ari zen kontakizunak adierazpen-olatuak igortzen zizkion **etengabe** aurpegira, sudur, begi eta ezpain ertzetatik. Irene Aldasoro

Gure aurrean beharginak ari dira, **etengabe** lanean. Berria - Kultura

Etengabe ekinean, ahaleginean eta bortxan, beti erabili ohi dugun arma bat bezala higatzen ziren. Iñaki Iñurrieta

Sekula ez nuen izan **etengabe** telefonoz deika ari zitzaidan lagunik. Xabier Olarra

Etengabe du bekokia izerditan, **etengabe** dabil harat-honat, **etengabe** atezuan. Urtzi Urrutikoetxea

Baina azterketa hau azterketa-eredua da, bere zehaztasunagatik eta azterketaren egileek beren lanaren metodologia **etengabe** zalantzan jartzeko duten kemenagatik. Josu Zabaleta

Gizona isilik dago eta emakumeak erdi idatzita dagoen orriari begiratzen dio **etengabe**, ez du ezer galdetu behar setioaren aztarnak hemen daudela jakiteko. Jon Alonso

Martak, begietan txinparta bi, pozik begiratzen zion, eta mihia ezpainen ertz batetik bestera eramaten zuen **etengabe**, entzuten ari zen bitartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Adelak mintza eta mintza jarraitu zuen, **etengabe**, barruan zerbait piztu balitzaio bezala, isilik gordetako doinuren bat edo. Juan Kruz Igerabide

Aurrera zoaz **etengabe**, motorrak gau eta egun martxan baitabiltza, entzuten dituzu, sentitzen dituzu, eta zeu ere **etengabe** aurrera zoaz, baina, mugitu, eguzkia bakarrik mugitzen da, edo ilargia. Joxe Austin Arrieta

Basoaren gune sarri eta **etengabe** ilunekin egokitu ginen, eta hezetasunak irristakor bihurtzen zituen pendizekin. Bernardo Atxaga

2 (esaldi amaieran)

Kanpandorreko erlojuak orduak jotzen zituen **etengabe**. Jose Morales

Gerora, egunak eta asteak igaro ahala, landareak hazten diren moduan, handituz joan zitzaiola min hura, ia oharkabean baina **etengabe**. Imanol Zurutuza

Astelehenean zabaldu zuten bi urteko azoka ospetsua eta, harrezkero, bat egiteko eskatzen ari zaizkie euskal enpresei **etengabe**. Berria - Ekonomia

Mintzairen kontrako guduka aitzina badoa, **etengabe**. Herria

3 *izond* etenik ez duena.

Francoren pinturaren oso bestelako molde batekoa ematen zuten hitz jario **etengabe** hark eta pasadizo jakinen oroitzapenak. Xabier Olarra

Hotzikara **etengabe** batek zeharkatzen zuen nire gorputza, kalanbre eterno bat zen, atsegina, amaierarik gabea. Juan Martin Elexpuru

Baina haizea batez ere, haize **etengabe** hura, hondarra harrotu baino areago, lehen ere esan bezala, jarioarazi-edo egiten zuena. Joxe Austin Arrieta

Neska ahitzen eta ahitzen ari da, suspirio **etengabeen** artean. Anjel Lertxundi

Aldaketa **etengabe** haiek, dela lege bidez, dela plebiszitoen bidez, arrunt bihurtu zuten Erroman lukurreria. Iñaki Iñurrieta

Horrela korritzen du berak: erritmo aldaketa **etengabeekin**. Berria - Kirola

Gorputzaren mugimenduak ere esna zegoela adierazten zuen, alderik alde kulunkatzen baitzen zabu arin baina **etengabe** eta beti-berdin batez. Koro Navarro

Gure lanbidea gudu **etengabe** horretan iharduki eta garaile irtetea da. Juan Garzia

Gaur egun, badakigu geneen eta ingurunearen arteko eragin-truke **etengabe** baten bitartez gauzatzen dela giza enbrioiaren garapena. Juan Garzia

Gustatzen zitzaidan eskuak hutsik estatuaren kontrako gerla **etengabe** batean sartua nintzelako irudipenaren orroatzea. Itxaro Borda

Zeren honelako liburuak, eta bertan kontatzen diren fikzioak, batzuk zein besteak, denak egiten baitira zalantza **etengabe** baten gainean, gauzak mesfidakor baieztaturik, batez ere ezer ez dela egia jakitearen urduritasunarekin, eta egia delako plantak eginik. enbaiti, odolberotasuna eta erronkazaletasuna, mugapen fisiko eta sozialekiko etengabeko indar-probaketa; beste zenbaiti, inguruneari buruzko erreakzio **etengabe** eta nekaezina, edozein gauzari keinadaka eta usnaka ibiltzea edo gauzak bat-batean jaurtitzea. Jon Alonso

Izan ere, haurtzaroa horixe baita, gaixotasun **etengabea**. Iñaki Iñurrieta

Gai hori baztertu egin zuen pentsamendu ekonomikoak gerraondoko hazkunde **etengabearen** euforia-giroan. Koro Navarro

Harryren makilaren argiaz, bidezidorrean aurrera zihoan armiarmen ilara **etengabeari** jarraitu zioten. Iñaki Mendiguren

Etxekoekin eztabaida **etengabeak**. Gotzon Garate

Epe luzera, garraio-kostuen beherakada **etengabeak** eta muga-sariak ezabatzeko joerak, herrialde industrializatuetan bereziki, nazioarteko zuzeneko inbertsioen beheraldia ere ekarriko zuten. Koro Navarro

Pinturaren historia osoa diferentziaren bazterkuntza **etengabe** bat baizik ez da, arrazionalizazio geometrikoaren alde. Josu Zabaleta

Barnetik astintzen ninduèn barne-borroka **etengabean**, beti ibili behar izaten nuen oreka baten bila, errukiak belaxkeriara eraman ez nintzan. Joan Mari Irigoien

Itxurazko joan-etorri **etengabean** gabiltza bizitzatik heriotzara eta heriotzatik bizitzara, esnalditik loaldira, loaldik esnaldira. Imanol Unzurrunzaga

Estatu Batuen, alde batetik, eta bestetik Europa eta Japoniaren arteko indar-harremanen oreka berria, Estatu Batuetako manufakturen merkataritzaren balantzaren higadura **etengabean** agertzen hasi zen Hazkunde laster hori ia **etengabea** izan zen 1973 arte, eta industria-talde handien sorrera bultzatu zuen ekonomia aurreratuenetan, hurrenez hurreneko kontzentrazio-uhinetan. Koro Navarro

Gizonezkoen arteko afari baten ondoren zen, zigarro puru azkengabeen eta basotxo **etengabeen** orduan, ketan eta txegosteen moteltasun beroan. Josu Zabaleta

Amaren eskaera **etengabeek** bultzatuta. Josu Zabaleta

Haren esaldi esplizituegi eta **etengabeen** zaparradak harrapaturik eta aldi berean zanpaturik. Xabier Olarra

Errebista ikusgarri hunkigarria pasa ziela Don Carlosek jakinerazi digute telegrafo bidezko parte **etengabeek**. Txillardegi

4 ***etengabeko*** *izlag*

Etengabeko xuxurla sortzen zuen zuhaitzen hosto artera sartuz. Bernardo Atxaga

Hau zen bere ardurarik nagusiena eta **etengabeko** bilaketa: zein bidetatik, zein modutan hobeto zerbitzatu Jainkoa, honek nahi zuenaren arabera. Askoren artean

Hemen ohartu behar da **etengabeko** aldaketa batean bizi garela eta onera edo txarrera aldatzen garen arabera, dohatsu edo dohakabe deitzen gaituztela. Piarres Xarriton

Nabarmendu behar ditugu **etengabeko** baxua osatzen zutenak: biolontxeloa, kontrabaxua eta organo positiboa. Berria - Kultura

Etengabeko prestakuntzaren auzia lan arloko eskumenen negoziazioaren bidez atakatik ateratzen saiatuko da. Berria - Ekonomia

Mundua **etengabeko** mugimenduan dabil, baita bertan dauden zer guzti-guztiak ere. Xabier Amuriza

Bi egunez **etengabeko** euriak bota zituen Jeanne ekaitz tropikalak 600dik gora hildako eragin ditu oraingoz. Berria - Mundua

Ordu arte denbora luzean ia **etengabeko** buruko minak izan ohi zituena, ordutik aurrera gaitz orotatik erabat aske geratu zen. Askoren artean

Herrialde horietako askotan haurrak **etengabeko** larrialdi egoeran bizi dira, muturreko pobrezian hazten ari direlako. Berria - Gaiak

Geroztik, **etengabeko** harreman gizatiar eta zientifikoak izan zituzten. Herria

Koadratzea **etengabeko** zentratze/deszentratze kontu bat da, Arnheimek esango lukeen bezala. Josu Zabaleta

Orobat **etengabeko** iraupen bat dugu denek desiratzen, egiten ditugun guziak heriotzeari eskapatu nahiz egiten baititugu berdin. Piarres Aintziart

Neketsua eta aspergarria ere bada geure buruei jartzen diogun inperatibo kategorikoaren **etengabeko** zama hori, "euskaldun naiz eta Euskadi dut maite" behin eta berriro frogatzen ibili behar hori. Anjel Lertxundi

Bata bestearen atzetik igarotzen ziren **etengabeko** ilaran. Iñaki Mendiguren

Hamalau egun eman dituzu sufritzen, **etengabeko** nahigabean, baina tunelaren irteera gertu dagoela uste duzu, eta iltze horrek lurrari lotuta zauzka. Rafa Egiguren

Han, **etengabeko** eta esan ezin ahalako intziriz jardun zuen Jaunari eskatzen, erakuts ziezaiola perfekziorako bidea. Askoren artean

Orduan, gaitzak joa, bere handiustea galtzen hasi zen eta, **etengabeko** minaren minez, Jainkoaren zigorpean nolako egoeratan zegoen jabetzen. Elizen arteko biblia

Hilabeteotan **etengabeko** aurrez aurrekoak izan dira Mehdiren Armada eta AEB Ameriketako Estatu Batuetako Armadaren artean. Berria - Mundua

Etengabeko goranzko joerek behartuta, adituek euren aurreikuspenak zuzendu dituzte, eta aurten zilarra uste zutena baino %32,7 gehiago garestituko dela ohartarazi dute. Berria - Harian

Trosta eta trosta, **etengabeko** ibilian egon dituk urkatzeek iraun duten bitartean. Anjel Lertxundi

Ur-laster isilak daude itsasoaren alde batetik bestera **etengabeko** joanean, eta lurrunketaz galdua dirudien gainazaleko ura ez dago benetan galdua, baizik eta urrutiko leku eta sasoietan beheratuko da, bere zikinkeria guztiak destilatuta, euri bizi-emailearen forman. Iñaki Mendiguren

Espa antojagarri bat bihurtzen da azkenerako haurren zergatik? galdetu behar **etengabeko** hori. Iñaki Segurola

Nire ideia honako hau zen: enpresa bat sortzea ahaztuen gaineko liburuak argitaratzeko, haiek desagertu aurretik beren istorioak, egitateak eta agiriak salbatu eta gai horiei kontakizun **etengabeko** batean eitea emateko, bizitzaren kontakizunaren eitea, alegia. Oskar Arana

Beste hondamendi natural batzuk, iaz ehunka hildako eragin zituzten uholdeak adibidez, Indonesiako egur enpresek bultzatutako **etengabeko** baso soiltzeetan oinarrituta zeuden. Berria - Mundua

Odolberotasuna eta erronkazaletasuna, mugapen fisiko eta sozialekiko **etengabeko** indar-probaketa. Xabier Olarra

Nintzen **etengabeko** sexu aldetik frustratu eta norabidez indeterminatu hau bederen kitzikatzea lortzen zuten. Itxaro Borda

5 (izenondo gisa)

Paretaz bestaldera gorputzaren hiria zegoen, kaleak eta plazak, itzalak eta argiak, ez dakigu nondik datorren kantu bat, leiho infinituak, erromesaldi **etengabekoa**. Jon Alonso

Azalduko al didazu norantz doan populuaren kolektiboen erakundetze orokorra eta haien indarren pilaketaren prozesu **etengabekoa**? Josetxo Azkona

Hala bada, eztitasunak utzi egin zuen bere arima, kopetan halako ilundura **etengabekoa** marraztu. Patxi Zubizarreta

Mugimenduetan sotiltasuna ditek nabari, jolaserako gogo **etengabekoa** eta premia. Xabier Olarra

Sarairekin liluraturik bizi zen: iraganaz ahazturik, geroa atzeraturik, orain **etengabeko** batean. Felipe Juaristi

Unamuno-ren periodo honetako kredo positibistaren ondorioz, ez dut esango kontraesan **etengabekoan** mugitzen ari dela, baina konferentzia guztian atezu edo barne tentsio deseroso bat ohartzen da historia eta naturaren artean. Joxe Azurmendi

Hara mitosi **etengabekoaren** azalpen poetikoa, biziberritze politikoa erakusteko. Iñigo Aranbarri

Templeren une hartako hizketa eta galdeketa **etengabekoari**, haren fixazio bitxiei, haren amorrazioei, alegia. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ari da etengabe (17); **ari dira etengabe** (14); **ari zen etengabe** (7); **aritzen zen etengabe** (7); **ateak etengabe** (6); **baina etengabe** (24); **baitu etengabe** (5); **bat etengabe** (6); **batean etengabe** (5); **begiak etengabe** (6); **behera etengabe** (6); **bera etengabe** (7); **bila etengabe** (5); **burua etengabe** (6); **buruari etengabe** (5); **da etengabe** (54); **dela etengabe** (6); **dio etengabe** (10); **dira etengabe** (41); **ditu etengabe** (13); **dituzte etengabe** (8); **doa etengabe** (9); **du etengabe** (43); **dut etengabe** (8); **dute etengabe** (13); **egiten zuen etengabe** (6); **egun etengabe** (6); **ere etengabe** (21); **eskubideak etengabe** (11); **eskubideak etengabe urratzen** (7); **eta egun etengabe** (5); **eta etengabe** (162); **eta etengabe aldatzen** (5); **eta etengabe ari** (10); **etengabe aipatzen** (7); **etengabe aldatu** (7); **etengabe aldatuz** (12); **etengabe aldatzen** (31); **etengabe ari** (86); **etengabe ari da** (18); **etengabe ari dira** (19); **etengabe ari gara** (5); **etengabe ari zen** (7); **etengabe ari ziren** (9); **etengabe aritu** (9); **etengabe aritzen** (7); **etengabe atzera** (6); **etengabe aurrera** (5); **etengabe azaltzen** (5); **etengabe bat** (16); **etengabe batean** (6); **etengabe baten** (6); **etengabe begiratzen** (5); **etengabe bere** (13); **etengabe berritu** (5); **etengabe berritzen** (11); **etengabe egin** (28); **etengabe egiten** (36); **etengabe egiten zuen** (5); **etengabe ekartzen** (5); **etengabe elkarri** (7); **etengabe eman** (5); **etengabe ematen** (6); **etengabe entzuten** (11); **etengabe eragiten** (7); **etengabe erasotzen** (5); **etengabe erortzen** (7); **etengabe errepikatzen** (22); **etengabe esan** (5); **etengabe esaten** (10); **etengabe eskaintzen** (5); **etengabe eskatzen** (5); **etengabe eta** (57); **etengabe gertatzen** (8); **etengabe gora** (7); **etengabe handitzen** (8); **etengabe haren** (5); **etengabe haziz** (8); **etengabe hazten** (19); **etengabe hazten ari** (9); **etengabe hedatzen** (5); **etengabe hitz** (23); **etengabe hitz egin** (5); **etengabe hitz egiten** (13); **etengabe hori** (5); **etengabe ibili** (7); **etengabe ibiltzen** (5); **etengabe igo** (5); **etengabe igotzen** (5); **etengabe iristen** (8); **etengabe izan** (7); **etengabe jardun** (5); **etengabe jotzen** (17); **etengabe jotzen ari** (5); **etengabe kolpatu** (5); **etengabe lanean** (17); **etengabe lanean ari** (8); **etengabe mugitzen** (17); **etengabe nahasten** (5); **etengabe nire** (5); **etengabe otoitz** (8); **etengabe saiatu** (5); **etengabe saiatzen** (5); **etengabe sortzen** (12); **etengabe urratzen** (9); **etengabe zabaltzen** (7); **etengabe zure** (5); **ez etengabe** (6); **gara etengabe** (9); **giza eskubideak etengabe** (5); **honek etengabe** (5); **hori etengabe** (13); **horiek etengabe** (10); **horrela etengabe** (5); **horretan etengabe** (5); **ia etengabe** (12); **nik etengabe** (5); **nuen etengabe** (7); **prezioak etengabe** (5); **zela etengabe** (6); **zen etengabe** (41); **zion etengabe** (9); **zioten etengabe** (7); **ziren etengabe** (20); **zituen etengabe** (21); **zuen etengabe** (40); **zuten etengabe** (11)

ahalegin etengabean (4); **aldaketa etengabeak** (3); **arreta etengabea** (3); **artean etengabeko** (7); **artean etengabeko borroka** (5); **arteko borroka etengabea** (3); **baina etengabea** (6); **baina etengabea** (6); **baina etengabean** (3); **barre eraso etengabeen** (20); **bere etengabeko** (11); **bira etengabean** (3); **bizitza etengabeko** (5); **borroka etengabea** (7); **borroka etengabea** (7); **borrokak etengabeak** (3); **da etengabeko** (7); **den etengabeko** (5); **duen etengabeko** (8); **egoera etengabean** (3); **eraso etengabeak** (3); **eraso etengabeen** (20); **eraso etengabeen ondorioz** (20); **erasoak etengabeak** (6); **erasoak etengabeak** (6); **erasoak etengabeak izan** (3); **ere etengabeak** (4); **eta etengabea** (16); **eta etengabea** (16); **eta etengabea izan** (3); **eta etengabeak** (3); **eta etengabean** (5); **eta etengabean** (5); **eta etengabeko** (58); **eten gabe** (59); **etengabea da** (32); **etengabea da** (32); **etengabea dela** (9); **etengabea dela** (9); **etengabea den** (4); **etengabea denez** (3); **etengabea entzuten** (5); **etengabea entzuten** (5); **etengabea eskatzen** (4); **etengabea eta** (14); **etengabea eta** (14); **etengabea izan** (36); **etengabea izan** (36); **etengabea izan behar** (3); **etengabea izan da** (9); **etengabea izan da** (9); **etengabea izan zen** (15); **etengabea izan zen** (15); **etengabea izango** (6); **etengabea izango** (6); **etengabea izango da** (4); **etengabea zen** (14); **etengabea zen** (14); **etengabeak dira** (18); **etengabeak dira** (18); **etengabeak direla** (3); **etengabeak eman** (3); **etengabeak eta** (5); **etengabeak eta** (5); **etengabeak ez** (3); **etengabeak izan** (38); **etengabeak izan** (38); **etengabeak izan dira** (10); **etengabeak izan dira** (10); **etengabeak izan ziren** (26); **etengabeak izan ziren** (26); **etengabeak jaso** (3); **etengabeak ziren** (7); **etengabeak ziren** (7); **etengabean ari** (5); **etengabean ari** (5); **etengabean egiten** (4); **etengabean joan** (3); **etengabeen ondorioz** (20); **etengabeen ondorioz ezin** (20); **etengabeko borroka** (10); **etengabeko borrokan** (5); **etengabeko hazkundea** (5); **etengabeko joan** (14); **etengabeko lana** (6); **etengabeko lanean** (5); **etengabeko prestakuntza** (10); **etengabeko prestakuntzaren** (7); **etengabekoa da** (5); **etorri etengabeak** (3); **etorri etengabean** (4); **hori etengabea** (3); **hori etengabeko** (6); **hots etengabeak** (4); **ia etengabea** (4); **jardun etengabea** (3); **jario etengabea** (4); **jario etengabean** (6); **jario etengabean** (6); **jarioa etengabea** (4); **jarioa etengabea izan** (3); **joan etorri etengabeak** (3); **joan etorri etengabean** (4); **mehatxu etengabea** (3); **mugimendu etengabean** (3); **presentzia etengabea** (4); **tentsioa etengabea** (4); **tentsioa etengabea da** (3)

---

etengabeki *adlag* etengabe.

Ez da onartzekoa Zayd deritzon gizabanako honek, hasieran molekula bat izan ondoren, betegintza lortu arte, **etengabeki** aldatuz joan denak, bere burua aldaraztea, bere baitan era horretako itxuraldaketak sorraraziz. Xabier Kintana

Etengabeki higitu eta itxuraldatzen den ordoki urdina begietsiko zenuke, harri txintxolazko ozeano idor honen ordez. Xabier Montoia

Mobilizazio gutxi batzuen aipamena ere jasotzen du autoak, Otegik, haietan parte hartu izanagatik, legea **etengabeki** urratu duela argudiatu nahian. Berria - Harian

Auto ilara noizbehinka apurtxo bat mugitzen zen, halako geldotasunez non Lucy berriro hasi baitzen kezkatzen eta erlojuari **etengabeki** so egiten. Joxemari Iturralde

Batzuk beren higidura berezian ekialdetik mendebaldera doaz, eta beste batzuk, aldiz, **etengabeki** mendebaldetik ekialdera higitzen dira. Xabier Kintana

Badira gure artean distira hori behin eta berriro ikusten duten pertsona batzuk, haren argiak **etengabeki** inguratuko balitu bezala, eta haientzat gaua eguna bezalakoa da, eta horixe da profeten mailarik gorena, esaerak dioenaz: [...]. Xabier Kintana

Honelaxe dihardu **etengabeki** parafraseatzaileak bere azalpenetan (bakea bego harekin!). Xabier Kintana

Kukuturik zegoen lekutik Letu eta Lekeitio eta ezezagun zitzaion gazte iduriz euskalduna ikusten zituen **etengabeki**, solasean. Xabier Montoia

---

etengailu **1** *iz* korronte elektrikoa eteteko edo berrabiarazteko gailua.

Egin liteke konputagailu bat **etengailuak** besterik erabili gabe. Irene Aldasoro

Etengailua hormatik zintzilik zegoen, sakatu eta berehala piztu zen argia. Joseba Sarrionandia

Dudakor, urrats batzuk egin zituen, gero argiaren **etengailuari** eragin zion. Monika Etxebarria

"Ikusten diat presaka habilela. Argia pizteko betarik ere ez duk izan." "Utzi horrela! -hots egin nion eskua **etengailura** eraman zuenean- Nahikoa argi sartzen da lehiotik". Bernardo Atxaga

Gorputzean ez dago, ez **etengailu** mekanikorik, ez korronte elektriko handirik, baina hormona deritzen mezulari kimikoak baliatzen dituzte berrelikadura-sistema negatibo askok. Irene Aldasoro

Neuronak baditu, horrez gainera, beste hainbat ezaugarri, eta, haiei esker, pizteko eta itzaltzeko **etengailu** soil bat baino gauza baliagarriagoa da. Irene Aldasoro

Askotariko **etengailua**. Irene Aldasoro

Noiz edo noiz gure etxera etortzen zen, armairu bat konpondu beharra zegoenean, edo argi-**etengailu** bat aldatu edo kutxak lotu beharra zegoenean. Fernando Rey

2 irud/hed

Atsedenaldia behar zuen; buruko **etengailua** sakatu eta nirvana bortitz batean erori. Fernando Morillo

Neurona **etengailu** bat da funtsean, eta pentsa daiteke ea aski ote diren **etengailuak**, 10.000 milioi izanda ere, konputagailu bat egiteko. Irene Aldasoro

---

etenka **1** *adlag* etenak eginez.

Etenka egin nuen lo. Juan Garzia

Eta nire... -**etenka** hitz egiten zuen Léak, amorruaren amorruz-. Jon Muñoz

Haren atzean, biolontxeloa, monodia baten erritmo nekatua **etenka** markatzen, leihoen kontrako txingor-burrunbaren gaindi. Anjel Lertxundi

Are zailagoa da kontua odola **etenka** ematen delako: izan ere, gorputzeko gainerako tokietako antolamenduen kontrara gertatzen da hori, etenik gabe iristen baita odol-emaria organo nagusi gehienetara. Irene Aldasoro

Bitsa dario, auhenka, gorputza dardar, deliratzen ari da, giharreak atezuan, bihurkatzen, arnasa **etenka**, konbultsioek ahituta utzi arte. Xabier Amuriza

Eta jauzika eta **etenka** datozkit orduan pentsuak, bakoitza bere aldetik balihoa bezala... batasunik eta osotasunik gabe. Joan Mari Irigoien

Zuzi erretxinatsuak, berdin saiatzen dira, sua lagun, argi berria hornitzen, garrak etengabe dardar, eta argiak, **etenka** bezala, ez dio gelak argitzeari uzten. Xabier Amuriza

2 ***etenkako*** *izlag*

Solasaldia **etenkakoa** izan zen, gizalegezkoa eta oso tentsio handikoa, manera onen bitartez bata bestea txunditu nahian dabiltzan arrotzak bagina bezala. Fernando Rey

etenkari *izond* etenka aritzen dena.

Hegala, tarteka zakarki zanbulukatua, eta hegalaren gaineko argi berde **etenkaria**, horixe bakarrik ikusten nuen; lainotan, argi berdea bera ere ezkutatzen, ordea, eta orduan bai zeharo itsu. jaun haiek guztiak paperezko kapelu nabarrak buruan, garabien zarata, baina dena lainopean; faro-argiztada **etenkariak** kostaldean. Joxe Austin Arrieta

---

etenkatu *izond* etenka esana.

Zehar-estiloa urrun eta ahula da; badakit nire kontaeraren eragingarritasuna sakrifikatzen ari naizela; imajina ditzatela nire irakurleek gau hartan hala larritu ninduten esaldi **etenkatuak**. Juan Garzia

Bat-batean emakume gogorraren itxura joan zitzaion, bil-bil egin zen nire aurrean dibanean, eta negarrez hasi zen, intziri bitxi eta **etenkatuak** eginez. Xabier Olarra

---

etenkor *izond* erraz eteten dena, eteteko joera duena.

-Agur, ama! -esan nion ahots hari mehe **etenkor** batez. Txillardegi

Haize balek halako arnasa erritmoa eransten zioten isilari, eta aurreko zuhaitzen hostotzan zurrumurru **etenkorra** eragiten. Txillardegi

Lats urri batek atariaren aurretik bere zurrumurru **etenkorra** entzunarazi nahian. Txillardegi

---

etentxo *iz* eten laburra.

Joan den astean gure bizitzaren monotoniak **etentxo** bat izan zuen: Peter eta emakumeei buruzko liburu baten kontua izan zen. Josu Zabaleta

Ahots zoliz irakurtzen du, ondo modulatuz, eta ez zaio arnasa-hotsik entzuten **etentxoak** egiterakoan. Anjel Lertxundi

---

etenune *iz* zerbait eteten den unea edo gunea.

Arrebak hamaika istorio kontatu dit, **etenunerik** gabe ia-ia. Txillardegi

Begiak esku-ahurraz babestu eta gorantz begiratu nuen: zeruaren urdin haustuak ez zuen **etenunerik**, eguzkiaren inguruan baizik. Anjel Lertxundi

Han entzun nituen -zergatik ez dakit, ez bada senak hartara bultzatu ninduelako-, hots apal eta zehazgabe batzuk, ekaitzaren **etenuneetan** iristen zirenak, bitarte luzeetan, ez nekien nondik. Koro Navarro

Lehen bereizketaren eremu horietan, hor agertzen diren distantzietan, **etenuneetan** eta atalaseetan diskurtso psikiatrikoak aurkituko du bere esparrua mugatzeko aukera, zertaz hitz egiten duen definitzekoa. Xabier Arregi

Iraxuk horretan **etenune** labur bat egin ondoren, hariari eutsi dio: [...]. Txillardegi

Memento horretan **etenune** bitxi bat sumatu nuen, eta haria galdua nuela erreparatu. Txillardegi

Eta bera errazago aztertzeko adibide legez hartuko dugu psikopatologiaren diskurtsoa XIX. mendetik hona, erraz onar bailiteke hau **etenune** kronologiko egoki bezala lehen hurbilketa bat egin gura izanez gero. Xabier Arregi

---

eter *iz* ustezko jariakin guztiz mehea, espazio oro betetzen omen duena eta uhin elektromagnetikoen eraginez dardaratzen omen dena; airea, zerua.

Europako astronomoek, aristotelikoak zirenez gero, Aristotelesen Fisikaren jarraitzaileak alegia, izarrak aldaezinak zirela uste zuten: izarrak **eter** zeritzan substantzia ustelezin batez inguratuta zeudela eta finkoak zirela. Bernardo Atxaga

Berau **eterra** da, zeruko esferen gaia osatzen duena. Xabier Kintana

Azkenik, euria ere hil egiten da, aita **eterrak** ama lurraren sabelera jaurti duenean. Xabier Amuriza

Suak irabazi egin baitzuen eta bazterrak mihizka erre baitzituen, eguzkiaren zaldien indar sutsuak Faetonta desbidatu eta **eter** osoan eta lur guztietan zehar arrastatu zuenean. Xabier Amuriza

Horregatik eguzkiak bere errainuekin berotuz gori-gori jartzen du gainean daukan **eterra** eta Marte planeta leku horietan ibiltzen da. Santiago Iruretagoiena

Nire aurrean panpinatxo zuri batek flotatzen zuen, Jules Verneren nobela bateko zakur hark bezala, zeinaren hilotzak **eterrera** bota eta gero astronauten atzetik jarraitzen baitzuen. Joseba Urteaga

Epikuro ere, adimenean giza enda gainditu eta, eguzkiaren irteerak izarrak **eterrean** bezala, denak itzali zituena, biziaren argia iraungitzean, hil egin zuan. Xabier Amuriza

Mundu galanteko tenplu zerutarrei eta izar distiratsuz jositako **eterrari** begira. Xabier Amuriza

Izarrek geldi-geldi, **eter** sabaian josita dirudite eta etengabe mugitzen ari dira, sorreratik sarrera urrunetara ortzia gorputz argiz kurritzen baitute. Xabier Amuriza

Honela orduan **eter** arin eta hegazkorrak, gorputza kondentsatzean, mundu guztia inguratu eta hesitu zuen eta, alde guztietarantz urrun hedaturik, besarkada leratsuan gainerako guztia hesitu zuen. Xabier Amuriza

2 (izenondoekin)

Ibai guztietatik eta lurretik bertatik ere lainoak eta lurrunak sortzen ikusten dugu, zeintzuk arnasa bezala honela gorantz igorriak diren eta ortzia ilunpetzen eta, astiro-astiro pilatuz, hodeiak sortzen dituzten: **eter** izarratuaren beroak ere goitik sakatzen baitie. Xabier Amuriza

Ondotik erran zidan nola Estagirako maisuak bereizten zituen Lurra, edo ilargipeko mundu lohia -lurrez eta urez, airez eta suz osatua, geruzaz geruza-, eta Zerua, edo ilargi gainekoa - **eter** ezin garbiagoaz osatua, non kokatzen baitziren planetak eta izar geldiak. Joan Mari Irigoien

Lurraren pisua, gorputza kondentsaturik, geratu egin zen [...], gero itsasoa, gero airea, gero **eter** sutsua bera, euron gorputz bigunei esker, guztiz garbi geratu ziren, bata aurrekoa baino arinago, eta bigunena eta garbiena den **eterra** airezko auretan flotatzen da eta bere gorputz biguna ez du aire korronte gerakaitzetan nahasten. Xabier Amuriza

3 (hitz elkartuetan)

Baliteke ortzi osoa geldi egotea ere, izar argiak aurrera doazen bitartean; dela eurekin batera **eter** korronte bizkorrak barruan doazelako eta, bidea egin ahala, zirkuluan biratzen eta ortzi sapaia osatzen duten suak arrastatzen dituztelako. Xabier Amuriza

Egunak luzatuz eta gauak laburtuz doaz eta gaua handitu ahala argia gutxituz, bai eguzkiak berak, bere ibilbidean lurraren gainetik eta azpitik arku ezberdinak eginez, **eter** eremua erdibitzen eta orbita zati ezberdinetan banatzen duelako eta alde batari kendu diona bueltan besteari gehituz hornitzen duelako. Xabier Amuriza

Gaur dakigunaren arabera, ikusmeneko unibertsoa atomo baten parte txiki bat izan liteke, ioiz osatua, animaliaren baten bizi isurkinetan (**eter** argiduna) flotatuz legokeena. Xabier Olarra

4 kimikan, konposatu organikoa, molekulan oxigeno atomo bat duena bi hidrokarburoren erradikalekin.

Perlesiaren izumenak, begietako arazoak, hotzerako sentiberatasunak, gaitzen kontra hartzen dituen bromuroen, **eterren**, opioaren gehiegikeriek ahultzen dute eta etsimenera eramaten. Josu Zabaleta

Hiruzpalau urtetan dimetil **eterra** (DME) izango dugu, kamioientzat. Berria - Harian

Anestesiarako **eterra** erabili zuen, eta salto handia izan zen horrelako lanetarako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez zuten erabili **eterra**, baizik eta beste anestesiaren bat, eta handik bost minutura nire onera etorria nintzen, nahiz eta oso ongi ez sentitu. Xabier Olarra

Eterrez eta sendagailuz urrineztatu klinikako pasagia beilegian, eskuak aurpegiratu zituen. Itxaro Borda

Eter botila handi bat hartu, eta etzanik, handik geldiro arnasa hartzen hasi nintzen. Josu Zabaleta

Ez da batere atsegina senarraren ondoan esertzea eta **eterraren** eraginetik esnatzean beste emakume baten izena murduskatzen aditzea, zurea aditu beharrean. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta eter (3); **eta eterraren** (3)

---

eterdi 1 *adlag ipar* eta erdi.

Bi egunez, uztailaren 13an eta 17an, bi oren **eterdiko** ikusgarri xoragarri bat eskainiko dauku: "West Ibarre Side Story", Matin Irigoien-ek sortu obra. Herria

Oren bat **eterdiko** zoriona. Herria

Oren bat **eterdi** pasa eman dute San Andresen partida eder hunen bururatzen eta baiones jendea gustatu. Herria

Badu jadanik 3 urte **eterdi** preso dagola. Herria

Oren bat **eterdiz** goiti iraun duen partida huntan, irabazleak frango aise nagusitu dira. Herria

Luhusoko ikusgarriarekin, bi oren **eterdiz**, xoraturik egon gira. Herria

2 (ordua adierazten)

Goizeko 9-ak **eterditan**, orain fama haundia duen tripa salda jastatzen ahalko da; 11 orenetan, meza nagusia, parropiako kantariekin. Herria

Hamekak **eterdietan** meza kantatu dugu Estibalitzeko eliza nagusian, hamar bat apez aldare inguruan izanik. Herria

11 ak **eterdietan**, aperitifa, sala berrian, musikarekin. Herria

Salbatorez 10 ak **eterdietako** mezan iraganen da hau eta 3 haur bataiatuak izanen dira meza hortan berean. Herria

Hitz ordua emana da aratsaldeko 6ak **eterditan**, herriko etxean. Herria

Jendea azkar bildu da, zaldia ere ba, hargatik prezioak ez ziren gorenean, zenbait egun lehenago umeak salduak baziren 10 libera kiloa, egun hortan 8 **eterditarik** 9 **eterditara** saldu da ainitz. Herria

Irailaren 20an (asteartea): goizeko 10etatik eguerdira eta arratsaldeko 3ak **eterditik** 7ak **eterdiak** arte. Herria

Lau **eterdiko** xapelgoan 5-0 abiatu da gogor azkaindarra. Herria

Lau **eterdikoa** da bai zinez Galarza V baina hor ere nausitu Asier. Herria

Eta doala gaztea beti gorago lau **eterdian**. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ak eterdietan (21); **ak eterdietarik** (3); **ak eterdietarik goiti** (3); **ak eterditan** (78); **ak eterditan hasiko** (3); **ak eterditan ipuinak** (3); **ak eterditan izanen** (3); **ak eterditarik** (5); **bat eterdi** (32); **bat eterdi huntan** (7); **bat eterdi iraun** (4); **bat eterdiko** (4); **bat eterdiren** (3); **bat eterdiz** (13); **bi oren eterdi** (3); **bi oren eterdiko** (3); **bi oren eterdiz** (3); **bi urte eterdi** (3); **eguerdi eterditan** (3); **eterdi huntan** (13); **eterdi iraun** (4); **eterdi iraun du** (3); **eterdiak arte** (7); **eterdietako mezan** (3); **eterdietan meza** (3); **eterdietarik goiti** (3); **eterdiren buruan** (3); **eterditan hasiko** (3); **eterditan ipuinak** (3); **eterditan ipuinak hurrup** (3); **eterditan izanen** (4); **eterditan izanen da** (4); **eterditan meza** (3); **eterditarik goiti** (9); **hamarrak eterditan** (3); **lau eterdian** (8); **lau eterditan** (3); **milun bat eterdi** (4); **oren bat eterdi** (17); **oren bat eterdiz** (8); **oren eterdi** (6); **oren eterdiko** (4); **oren eterdiz** (5); **urte bat eterdi** (7); **urte eterdi** (12); **urte eterdi huntan** (5)

---

eterealizazio *iz* etereo bihurtzea.

Benetako aurrerapena **"eterealizazio"** bezala definituriko prozesua da: oztopo materialak gainditzea, honek gizartearen energiak askatzen dituelarik, aurrerantzean kanpokoak baino gehiago barrukoak eta materialak baino gehiago espiritualak diren erronkei erantzuteko Esanahi material batetik esanahi espirituala sortzea guk, Azterlan honen lehenagoko pasarte batean, **"eterealizazio"** deitu dugun eta hazkundearen sintomatzat hartu dugun prozesuaren adibide da. Iñaki Mendiguren

Greko eta latinezko hiztegiaren **eterealizazioaren** gure ikerketa -oso erraz luza zitekeena- aski da adierazteko helenismoa benetako praeparatio evangelii izan zela eta, helenismoaren raison d'être honek kristautasunaren obertura gisa zertutako zerbitzua bilatzerakoan, ikerketa-bide itxaropentsuan jarri dugula hanka, nolanahi ere. Iñaki Mendiguren

---

etereo *izond adkor* guztiz mehea, atzigaitza.

Usain **etereoak**: alkohola eta kloroformoa, esate baterako. Irene Aldasoro

Orainaldia, berriz, alegiazkoa bizi izan zuen beti, kalesan sarturik eta ipuin bateko pertsonaia **etereo** baten gisa. Anjel Lertxundi

Bere biluztasun **etereoa** estali beharrean aurkitzen baita. Iñaki Mendiguren

Los Angelesetik Londresera neuzkan ordu luzeetan irakurriko nuela pentsatu nuen, lainoak baino goragoko eremu **etereoan**. Bernardo Atxaga

Horrek zuzenean eraman zuen, melodiaren zentzu limurtzaileak arrastaturik, sukaldetxo hartatik at, beste eremu **etereoago** batzuetara. Joxemari Iturralde

-Mai, ez ahal duzu nehoiz, izpiritu hutsezko izate **etereoetaz** hitz egiten entzun? Itxaro Borda

'Kalitatea eta bizitza' binomioa oso da interesgarria, erakusten duelako horren **etereoa** den zerbait (bizitza) neurtu daitekeela; Matematikak ere, nahiz hura izan zientzia guztien artean prestuena eta abstraktuena, **etereoetan etereoena**, bizi garen lur honetan ditu barneratuak bere sustrai sakonak. Berria - Gaiak

Modu maskulinoa **etereoagoa** da, urrunagoa; pentsamendu maskulinoak kontzeptuen gainean hotzean pentsa dezake eta, aldiz, pentsamendu femeninoak pentsatzeko hurbiltasuna behar du, objektuak behar ditu, afektua, ukimena, usaimena, ikusmena. Ana Urkiza

Giulia, mehe-mehe eta beltzaxka, izotz-begidun Michèle Morgan **etereoarekin**; ni, otxan eta atzerakorra, Jean Gabin desertore, xarmatzaile, harroputz eta malamentean hilarekin. Juan Garzia

---

eterleku *iz* eterra dagoen lekua.

Geure gorputz barruan ere, arima eta gogoa non izan eta haz daitezkeen finkaturik eta erabakirik dagoela ikusten denez gero, are gehiago ukatu behar da gorputzetik eta bizidun formatik at iraun dezaketela, soroetako zokil xehatuetan edo eguzkiaren suan edo urean edo **eterleku** garaietan. Xabier Amuriza

---

eternal *izond* betierekoa, eternoa.

Zeren jainkoen izate guztiak bere baitan eta bakerik gorenez behar baitu bizitza **eternala** gozatu, gure arazoetatik bereiz eta urrun aldendurik. Xabier Amuriza

Honako honetan are okerragoa da; zure ahalketi hori debota da, haurtzaro **eternalera** kondenatu ohi duen emakume onaren deboziokoa. Jon Muñoz

Ebakitzen eta zati bihurtzen denak argi dago izaera **eternala** edukitzeari uko egiten diola. Xabier Amuriza

Lehenkien loturak ezberdinak direnez eta materia **eternala** denez, gauzek euren gorputz osoan diraute, haien uztardura desegiteko bezain indar bortitzak jo arte. Xabier Amuriza

Non jausi zen gizaundien hainbeste balentria eta nola ez da inon loratu, ospearen monumentu **eternaletan** irarrita? Xabier Amuriza

Begira gu jaio aurreko denbora **eternaleko** iragana ere zer hutsa den guretzat! Xabier Amuriza

Zeuk bakarrik sosega ditzakezu hilkorrak bake lasaiz, gerralan ohilak Martitz armajaunak baitaramatza, zure altzoan etzan ohi dena bera, maitasunaren zauri **eternalak** abaildurik. Xabier Amuriza

Zazpi adarreko argimutil zenbait ageri ziren, argi **eternalez** izekiak. Juan Garzia

Eguzkiak, jaustunari bidera irtenik, munduko lanpara **eternala** hartu zuen eta zaldi itsutuak bildu eta dardar uztartu zituen eta euren bidetik bergidatu, dena gobernatuz, greziar poeta zaharrek kantatu zutenez. Xabier Amuriza

Literatura ez da sortzen arau absolutu **eternal** batzuen aplikazio moduan, eta ez da halako arauekin juzgatu behar. Joxe Azurmendi

Nahiago dut sinetsi ezen hutsegiteak izanagatik luzeak ez direla **eternalak**; eta ez dezaket pentsa ongia egiten duena be rtutearen etsai denik. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizitza eternala (3); **egunak eternalak** (3); **eternal bat** (4); **eternal batean** (4); **eternal hori** (3); **eternala egin** (3); **eternala zen** (3); **eternalak eraginda** (3); **eternalak izan** (3); **materia eternala** (3)

---

eternalizatu, eternaliza(tu), eternalizatzen du *ad* eternal bihurtu.

Ideologikoki «onartezina» irizten dio: «Fundamentalismorako bidea ematen du, historiaren une bat **eternalizatu** egiten duelako». Berria - Harian

---

eternalki *adlag* era eternalean.

Laurogeita hemeretzi edo ehun urtera arte bizi izan zen alkoholiko baten semea zela Franco hura, eta, edaten ez zuenez, **eternalki** biziko zela. Bernardo Atxaga

Eternalki urperatzen ziren, sekula erabat urperatu gabe. Harkaitz Cano

Demagun, ordea, hauek **eternalki** iraun dezaketela: hala ere, edo organo baten sentimena eduki behar dute edo animalia osoen berdinak direla pentsatu behar. Xabier Amuriza

Gizon bat bere anomalia guztiekin deskribatuko lukeen liburua japoniar estanpa bat bezalako artelan bat litzateke, non **eternalki** ikusten baita beldartxo baten irudia behin eguneko ordu partikular batean begietsia. Juan Garzia

Arimaren zerua **eternalki** zeharkatzen zuen galdera zabal eta orokorra. Anton Garikano

Gogoeta egiten zuen **eternalki**, bere amets antzuan, batere ezagutu ez zituen gauzez. Juan Garzia

Indusketok guztiok alferrik dira, zeren Kid kapitainak adierazi baitzuen bere gordailuek **eternalki** ezkutuan iraungo zutela "perrail odoljario dun gizona"rengatik. Juan Garzia

Zorionak, ordea, izoztuko du bere irria **eternalki**. Berria - Kultura

Burke jaunaren irudimen emankorra asperturik zegoen giza esperientziaren kontakizun **eternalki** antzekoez. Juan Garzia

---

eternidade ik **eternitate**.

---

eternitate *(ETCn **186** agerraldi; orobat **eternidade** g.er.) iz* betikotasuna, betierekotasuna.

Hala ibili nintzen **eternitate** hartan, eguna joan eta eguna etorri, Elbiraren musu hura burutik kendu ezinik! Joan Mari Irigoien

Aspaldi batetik aspaldi batera ihesi, **eternitate** batetik **eternitate** batera jauzika. Felipe Juaristi

Literatura unibertsaleko pertsonaia bat aukeratu behar duzu, eta hemendik aurrera, fikziozko pertsonaia horren baitan biziko zara **eternitate** osoan. Harkaitz Cano

Eternitatea ez da handi, ez ttipi, esan liteke egun bateko edo instant bateko gertaldia dela, irudipen itsu batek hazia eta hiperbole bihurtua. Patziku Perurena

Eternitatea ez baita denbora luze-luzea, denborarik eza baizik: atzorik eta biharrik eza, mugarririk gabeko jario betiberdin eta betibera, geltokirik gabeko trenbide zentzugabea. Joxerra Garzia

Izan ere, **eternitatea** ez da luze-labur kontua. Joxerra Garzia

Eternitatea denbora balitz eta denbora **eternitate**, mundua Jainkoa bezain betidanikoa izanen litzateke. Joan Mari Irigoien

Gizakiak **eternitatea** irrikatzen du, baina ezin lor dezake haren suzedaneo bat baizik: estasiaren unea. Karlos Linazasoro

Zeremoniek, errituen errepikapen obsesio goxo batez beterikoek, **eternitateak** denbora jan balu bezala, aldareko urreek, arropen distirak, loreen perfumak, intsentsuak, kantuen xarmak zentzu guziak asebetetzen zizkidaten. Piarres Aintziart

Beila **eternitatearen** zatitxo bat da, espazioan landatua, esne-laino bat, eremuen lazturen gainean bela bat bezala etzana. Piarres Aintziart

Jainkoaren Semeak sofritzerik ez zeukanez jainkotasunaren **eternitatean** zirauen artean, zeruko Aitak denboran izatera bidali zuen, gizon egin zedin eta sofri zezan. Joan Mari Lekuona

Denboraz eta **eternitateaz** mintzo gara, baina zer, biak bat eta bera balira? Joan Mari Irigoien

Amorioaren denbora bertze denbora bat da, **eternitatearekin** eta sekula gabeko sekularekin lotua dagoena. Joan Mari Irigoien

2 ***eternitate bat*** *adkor* oso denbora bitarte luzea.

Errepikaldi haiek guztiz mekanikoak izaten ziren, ia pentsatu gabeak, eskolan zuela **eternitate bat** ikasitako abezearen hurrenkera zentzugabea buruan sartu nuen antzera. Alberto Ladron Arana

Azken hitz horiek erratean, amak, bere bi eskuen artean hartu zuen burua, eta **eternitate bat** iruditu zitzaidan bulta batez egon zen mugitu gabe. Daniel Landart

Zure bizi-denbora pagakizunezko **eternitate bat** izango da. Iñaki Segurola

Maisu errusiarraren buruaren barnean banengo bezala ikusi nuen dena orduan, eta hark zuela **eternitate bat** sentitu behar zuena sentitu nuen nik. Alberto Ladron Arana

Eternitate baten buruan, barre basa batek urratu zituen labirintoko ilunpeak. Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina eternitatea (3); **da eternitatea** (3); **eternitate bat** (14); **eternitate baten** (8); **eternitate baten buruan** (4); **eternitate guztia** (3); **eternitate osoa** (6); **eternitate osoan** (4); **eternitatea bezain** (4); **eternitatea ez** (5); **eternitatea ez da** (3); **eternitatea zirudien** (3); **zuela eternitate** (4); **zuela eternitate bat** (3)

---

eternizatu, eterniza(tu), eternizatzen **1** du/da *ad* eternoa bihurtu, betikotu.

Gure gau bat betikotu duzu, **eternizatu**. Berria - Kultura

Aberastasuna **eternizatzea** nahi dugu, hori besterik ez da banketxe eta aseguru-etxeen funtzioa. Pako Aristi

Erromantze batean diotenez, sagar gorria, intxaur gorrixkoa eta basa-lizarraren baia gorria omen zen jainkoen elikagaia, bizitza **eternizatzen** zuena. Pello Zabala

Estrategia horren ondorioz, batzordearen bilerak **eternizatzen**, parlamentarioen arteko haserreak pizten, krispazioa neurrigabe handitzen eta, finean, ikerketa batzordearen lana erabat oztopatzen zen. Jon Alonso

Trantsizio bat, definizioz, **eternizatu** ere ez litzateke egin behar. Joxe Azurmendi

Egun eta gau, hiru egunetako tarte honetan, denbora bera ere **eternizatu** egiten omen da. Pello Zabala

2 (era burutua izenondo gisa)

Lantzean behin ene baitara biltzen nintzen eta ametsari bisita egiten nion: gizairudi **eternizatua** pentsamendu likidoetan, har zuri bat maitasunean bihurritzen. Berria - Kultura

eternizatze *iz* eternoa bihurtzea, betikotzea.

Espetxeak ere **eternizatze** hori mehatxatzen duen oro birrintzeko sortu ziren. Pako Aristi

eterno *iz* betierekoa, betikoa.

Hark ezarri ditu sendo bere lekuan betiko Egia **eternoa** eta azkeneko Ongia, mendebaleko kultura eta zientziako razionalitatearen harroin metafisikoak. Joxe Azurmendi

Zorionbiderik gorena bizitza **eternoan**. Jon Alonso

Adimenaren zeregina zientzian ez da ideien ordena **eternoa** jainkoaren gogamenean islatzea, munduko gauzen artean kausazko ordena islatzea baizik. Askoren artean

Sedukzioaren gaia Moisesen denbora baino lehenagokoa zela esan nion, baina gaurkotasunik galdu ez duena, gai **eternoa**. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero, Platonez eta platonismoaz ez hain seguru ibiltzen ikasi behar izan dugu, eta metafisikari isil-isilik agur esan diogu, bere Ideia **eterno** guztiekin eta Ongi absolutuarekin. Joxe Azurmendi

Energia plazer **eternoa** da. Fernando Morillo

Agintaldi **eternoaren** bidean den PNVk bidaideak hautatu behar ditu, gehiengo absolutuaren aukerak guztiz bereak egin duen honetan. Berria - Harian

Gure iraganaren aztarnarik gabe bizi nahi dugula, orainaldi **eternoan**. Berria - Kultura

Elezahar batek dio Casanovak berak ere ez zeukana saldu nahi izan omen ziolako sartu zuela Serenissimak kartzelan: gaztetasun (eta pasio sexual) **eternoa** bermatzen duen edabea. Anjel Lertxundi

Ez huen ezagutzen grina bitxi hori, gizasemeak duen grinarik ezkutuena, gizon bakoitzaren nerbioetan, zokorik zokoenean, su **eternoa** lurraren sakonaldeetan ezkutatzen den bezala. Xabier Olarra

Frantzia **eternoarekin** zerikusik ez zuen sasi-gobernua besterik ez zela hura. Joseba Zulaika

Burgosen, Espainia **eternoaren** bihotzean. Koldo Izagirre

Erretreta hartuz geroztik ez du inoiz huts egin eguneroko bi edo hiru tabernaren jira, baxoerdi **eterno** bat ondoan daukala egunkariak patxadan irakurtzeko. Koldo Izagirre

Rubertentzat, hala ere, Estatua ez da gauza **eterno** bat, ez du inolaz ere Abrahanen parabola exijitzen, une historiko bateko joeren konbergentzia trabagabe jariatzen dena besterik ez da. Joseba Zulaika

Hori bertutea eta bizioa norberaren iritzira definitzea da, hauek aldaezinak eta **eternoak** direla esan zaigunean. Juan Martin Elexpuru

Eternoak iruditzen zaizkidan segundo batzuk egiten ditu niri begira-begira. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eterno bat (5)

eterodina *iz* aparatu irrati-hartzailea, bi oszilazio nahasten dituena bien arteko diferentzia den frekuentzia lortzeko.

Tokia, bi metro karratu lan-mahai eta idaztaulki ziren; tresnak, berriz, familia koxkor bat, baina haien artean Westphal balantza eta **eterodina** ziren seinalatuenak. Juan Garzia

etertar *izlag/izond* eterrari dagokiona.

Hain handia da ibaien ugaritasuna, ezen dena urperatzeko mehatxuan baitagoz, itsasoaren barrenetik gainezkaturik: alferrik, ostera, haize garbitzaileek eta **etertar** eguzkiaren izpi desegileek itsas lautadak txikitzen baitituzte Hala ere, sarritan, hainbeste lan kosta eta gero, soroetan hostotu eta denak loratu direnean, edo eguzki **etertarrak** bero gehiegiz kiskaltzen ditu, edo bat-bateko erauntsiek eta izotz zuriek hondatzen dituzte, edo haizeteek oldar bortitzean erauzten. Xabier Amuriza

Argi gardenaren iturri oparoak ere, eguzki **etertarrak**, ortzia etengabe distira berriz irrigatzen eta argia bet-betan argi-berritzen du. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eguzki etertarrak (3)

etesio *izond* haizeez mintzatuz, udan ekialdeko Mediterraneoan dabilen iparraldekoa.

Ondoren Uda bero dator, ondoan Zeres haustuna eta akiloiaren ufa **etesioak** lagun dituela. Xabier Amuriza

Hark Egipto berorik handienean ureztatzen du, beharbada akiloiek, haize **etesioak** deritzen urtaroan, ibai-ahoen kontra putz egiten dutelako eta, urez kontra eginez, galgatzen eta, uhinei atzerantz eraginez, ibaia betetzen eta gelditzen dutelako.Baliteke urtaro honetan euriak ibaiburuan mamiagoak izatea ere, akiloien putz **etesioek** hodei guztiak alde haietarantz batzen dituztelako. Xabier Amuriza

etete *iz* hari edo kideko baten jarraitasuna haustea.

Altzairu urritasuna dago munduan, Asia aldean bereziki, eta Nissan autogileak, kasu, produkzioaren zati baten aldi baterako **etete** bat ere iragarri du Japonian dituen lau lantegietatik hirutan. Berria - Ekonomia

Herrialdeko segurtasun indarren desantolatze bat eta prozesu politikoaren **etete** bat behar litzateke horrelakorik gertatzeko, eta oraindik ez gaude horretan. Berria - Mundua

Beranduko ohartze horrek -eta birziklatzearen moteltzeak, HPEEko soberakinen ahitzea zela-eta- denak batera bultzatu zituen garapen-bideko herrialdeentzako krediruak bat-batean moztera, eta era horretan hain beldurgarri gertatzen zitzaien ordainketen **etetea** eragin zuten. Koro Navarro

Itoizko kableen **eteteaz** gain, beste hainbat ekintza ikusgarri egin dituzte. Txema Ramirez de la Piscina

«Indarekeriaren **etete** serioa» beharrezkotzat joatzen du Elkarri-k. Berria - Euskal Herria

Batasun handiak utzi eta **etete**-fenomenoetan jarri dute arreta. Xabier Arregi

Etete-klausula ez da aldatuko: hamabi milioi euro. Berria - Kirola

Javier de Pedrok 30 milioi euroko **etete** klausula du, Cesar Krutxagak 15 milioi eurokoa eta Asier del Hornok 9 milioikoa. Berria - Kirola

Hori dela-eta, Latino Amerikako, Ekialdeko Europako eta Mediterraneo aldeko herrialdeen ordaintze-**eteteen** historia luzeak garbi erakusten du bai hartzekodunek, bai zordunek, beren harremanetan agertzen duten amnesia txundigarria. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina etete (3); **bere etete** (3); **bere etete klausula** (3); **etete klausula** (45); **etete klausula du** (4); **etete klausula izango** (3); **etete klausula ordaindu** (9); **etete klausulak** (4); **etete klausularekin** (3); **etete klausularen** (6); **etetearen aurka** (3); **euroko etete** (16); **euroko etete klausula** (12); **euroko etete klausularekin** (3); **jardueren etetearen** (3); **milioi euroko etete** (15); **zuen etete** (3); **zuen etete klausula** (3)

ethos *iz* izaera.

Gizarte Maia, Hitita, Babiloniko eta Indikoak, desegiten direnean, gizaki primitiboaren **ethos**-era itzultzen direla dirudi. Iñaki Mendiguren

Zelotearen **ethos** berezia emozionala eta intuitiboa da, baina politika hori egin daiteke hotz-hotzean oinarri arrazionalen arabera. Iraganean, jatorri judaikoko erlijio nagusiak zelaian zeudenean intolerantzia izan zen nagusi, eta **ethos** indikoa nagusitu zen lekuetan "bizi eta bizitzen uztea" izan zen erregela. Iñaki Mendiguren

Bi gizarte horiek elkarrengandik aldenduta baitzeuden **ethos** desberdinengatik eta interes-gatazkagatik. Iñaki Mendiguren

Hinduismoaren erlijio nagusi postbudikoak filosofia budista kanporatu zutenean ez zuen dinastiaren aurkakotasunik izan, baina gainera ez zuen eragotzi inolako jazarpen ofizialek, arrotza izango baitzen Zibilizazio Indikoaren erlijio-**ethos** tolerante eta sinkretistikoarekiko. Iñaki Mendiguren

---

etika 1 *iz* moralaz diharduen jakintza; giza jokaera arautzen duen erregela multzoa.

Etika edo filosofia morala (testu honetan sinonimotzat joko baititugu bata zein bestea) giza ekintzen ebaluazioaz arduratzen den filosofiaren esparrua da. Askoren artean

Gaur berton ere nabari du gizakiak, eboluzio korapilotsu horrexen fruitu dena, bere ohituretan (**etikan**), politikan, inguruaren usnaketan (zientzian, etab.), bere portaera guztian. Joxe Azurmendi

Etikaren oinarri nagusia, edozein delarik ere **etika** hori, norbera-ez-den-beste hori onartzea da. Joxerra Garzia

Gogoeta ontologikoak harremanak ditu filosofiaren beste zenbait azpidiziplinarekin, hala nola **etikarekin** eta estetikarekin. Askoren artean

Etikarik gabeko portaera honek krisi larria eragin zuen NYT kazetan, inoiz bizi izan duen gogorrena: bost goi arduradunek dimisioa eman zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Desiraren **etika** da azkenik ezaren **etika**. Joseba Zulaika

Egin diren iraultza guztien artean, giza eskubideen aldeko iraultza hau izan liteke, beharbada, **etikaren** ikuspuntutik erakargarriena eta munduak egun behar duen beharrezkoena, gure garai honetan. Pello Salaburu

Ez zait inporta **etikari** pixka batean huts egitea horrela justiziaren alde egiten badut. Fernando Rey

Etikako irakaslea ez da **etikaren** irakaslea. Joxe Azurmendi

Estetika gehi **etika**, berdin politika. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Etika zorrotzeko emakumea da Temple. Xabier Olarra

Filosofia morala hiru esparru nagusitan bana daiteke: teoria etikoak (edo **etika** arauemailea edo normatiboa), **etika** aplikatua (edo **etika** praktikoa) eta metaetika. Askoren artean

Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua. Askoren artean

Etika humanista, **etika** autoritatezkoaren alderantziz, printzipio honetan oinarritzen da: 'ongia' gizakiarentzat ona dena da eta gaizkia gizakiarentzat detrimentala dena. Jenaro Garate

Zer balio eduki dezake autoritateak/botereak ez beste ezerk gidatzen duen **etika** normatiboak? Rafa Egiguren

Eginbeharretan oinarritutako teoria etikoen artean esanguratsuenak bi dira: **etika** kristaua eta **etika** kantiarra. Askoren artean

Etika homerikoa **etika** aristokratikoa da, *aristos* edo gorenen artean nagusitu zen "izateko arau-multzoa". Askoren artean

Etika aplikatuaren esparrua aztertuko da, eta azalpena esparru horren adibide paradigmatiko batera murriztuko da. Askoren artean

Etika sozialaren ordez banakako **etika** hasi zen gora egiten, estoikoei esker batez ere. Askoren artean

Bietako bat ez da "egiazko" **etika**; edo, gutxienez, bietako bat **etika** "hobea" da, "goragokoa". Joxe Azurmendi

Komunikatu ahal izateko hizkuntza, bizimodua ziurtatzeko teknikak, eta hitzik gabeko balio-sistema bat, nolabaiteko **etika** eta estetika barne hartzen dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

Kanten **etikan** ez dago bihotzik, ez dago berorik, izotzezko **etika** da. Jenaro Garate

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Argi zegoen iraultzaile ohiok batere lotsarik gabe baliatzen genituela Elizaren "aberastasunak", inolako fede-helbururik gabe, eta batere **etika**-zalantzarik gabe, uste baikenuen hura guztia herriaren izerdiarekin eraikia zela. Juan Kruz Igerabide

Aristotelesen Nikomakorentzako **etika** liburua da erreferentzia nagusia.-Hi **etika** irakaslea izanik, hire ustez zein izan beharko litzateke gure jarrera agentziaren injustiziaren aurrean? Askoren artean

Etika-komiteek azpibatzorde espezializatuak sortuko dituzte. Juan Garzia

Non utzi ditugu gure **etika** balioak? Pello Salaburu

Ekonomian, eta gizarte zientzietan oro har, handia izan da **etika** eta justizia gaietan Jonh Rawls-en eragina. Iñaki Heras

Esan beharra dago gai honen inguruan funtsezko auzia, azken batean, ez dela enpresak **etika** edota gizarte erantzukizunarekin zerikusia duten ekimenak zergatik ezartzen dituzten aztertzea, baizik eta neurtzea ekimen horiek zerbaitetarako baliagarri diren ala ez. Iñaki Heras

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dadila enpresa-**etika** eta erantzukizun soziala tresna bat izan, bide bat, helburua baizik. barne-**etikak** oldartzera deitzen gaituela. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaia etikaren (3); **beste etika** (3); **beste etika bat** (3); **da etika** (10); **da etika eta** (4); **da etikaren** (3); **du etika** (3); **duen etika** (3); **edo etika** (10); **edo etikaren** (4); **enpresaren etika** (4); **enpresaren etika eta** (3); **eta etika** (25); **eta etikarekin** (3); **eta etikaren** (13); **eta etikari** (3); **etika aplikatua** (3); **etika aplikatuan** (3); **etika aplikatuaren** (4); **etika arazo** (3); **etika aristokratikoa** (3); **etika bat** (7); **etika batzordeak** (7); **etika batzordeko** (5); **etika da** (6); **etika edo** (3); **etika ere** (3); **etika errentagarria** (3); **etika eta** (45); **etika eta estetika** (6); **etika eta gizarte** (4); **etika eta politika** (3); **etika ez** (4); **etika ez da** (4); **etika homerikoa** (3); **etika hori** (4); **etika irakaslea** (3); **etika izan** (4); **etika ko** (3); **etika kristaua** (3); **etika liburu** (3); **etika liburua** (3); **etika politikoa** (3); **etika praktikoaren** (3); **etika sozialaren** (3); **etikak ez** (4); **etikan ez** (3); **etikaren arteko** (3); **etikaren aurkakoa** (4); **etikaren eta** (10); **etikaren ikuspegitik** (3); **etikari buruz** (5); **etikari buruzko** (3); **etikarik gabeko** (3); **ingurumenaren etika** (3); **ingurumenaren etikak** (5); **moralaren eta etikaren** (3); **nikomakorentzako etika** (4); **ospitaleko etika** (5); **ospitaleko etika batzordeak** (3); **po etika** (3); **spinozaren etika** (6); **zatiaren amaia etikaren** (3)

---

etiketa[1] *iz* zerbaiten gainean, edukia, prezioa, jabea edo kidekoak adierazteko, ezartzen den paper edo kartoi zatia.

Ospitalean edo block-ean azken hatsa eman orduko, gorputza, buluzirik eta doi bat ikuzirik, **etiketa** bat zangoko behatzean estekaturik, kanpora ateratua da. Marzel Etxehandi

Ikasleen jantzi guztiek **etiketa** behar dute izenarekin. Iñaki Mendiguren

Lehenago ere **etiketan** zehaztu egiten zen transgenikorik ba ote zuten edo ez. Berria - Euskal Herria

Mapan puntu bat markatu eta *tag* (**etiketa**) batzuen bidez deskribatzen dute. Berria - Gaiak

Lurralde okupatuetan ekoizten diren produktuei, «Israelen egina» **etiketa** jartzen dio Tel Avivek. Berria - Mundua

Soinekoaren prezioaren **etiketaren** ondoan. Iñaki Arranz

14 bat urte nituela, levis prakak eramatea zen modernoena, **etiketa** gorrikoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Botiletako **etiketak** irakurtzeko ahulegia zen argi berdotz. Harkaitz Cano

Lehena, hutsik zegoen; bigarrenak, berriz, "1/2" jartzen zuen **etiketa** bat ageri zuen, eta urez erdiraino beteta zegoen. Jon Muñoz

Garagardo lata batzuk, ilaran eta **etiketak** agerian ordenatuak. Joseba Sarrionandia

Kanpaina apirila arte hasiko ez den arren, dagoeneko Ogasuna hasi da herritarrei **etiketak** bidaltzen. Berria - Ekonomia

Publizitatea eta **etiketak** euskalduntzeko lege bat behar da. Berria - Euskal Herria

Ez zen iraultzaile edo euskaldun **etiketa** paparrean ibilia eta ez zuen gero desbandadan alde egin. Joseba Sarrionandia

Hura laboratorio aleman bat zela eta alemanek ez dituztela inoiz ahazten **etiketak**. Juan Garzia

Merkataritza produktuen **etiketen** inguruko erakusketa abian du Gasullen taldeak. Berria - Mundua

Laboratorioko gainerako poto eta botila guztiek **etiketa** garbi-zehatzak zituzten, makinaz idatziak, edo eskuz letrakera gotiko ederrez. Juan Garzia

Ate bakoitzak metalezko **etiketa** zeukan, irakasle edo ikertzaileen izenekin. Fernando Morillo

Neurosi obsesiboa -hori baita ni kalifikatzeko erabili ohi duen diagnosi **etiketa**- jaiotzetik dakarkigun izaera ez delarik ere -nahiago dut izaeraz hitz egin, gaixotasunaz baino-, pertsonaren bizitzan oso goiz azaltzen omen da. Ramon Saizarbitoria

Sukaldean zen bi minuturen buruan, **etiketarik** gabeko ardo botila eskuan. Unai Iturriaga

2 (hitz elkartuetan)

Ez zen **etiketa** zale eta aspaldian lagun batek, beste argazkilari historikoak, Robert Capak, horien arriskuaz ohartarazi zion. Berria - Kultura

3 irud/hed

"Errealismo magiko" delako **etiketa** lauso bezain arrakastatsuak. Juan Garzia

Minimalismoa, super-errealismoa, errealismo zikina: sailkapenak, **etiketak**, idazle jakin baten nondik norakoak argitzeko nolabait ere baliagarriak izan daitezkeenak. Koro Navarro

Ezpeleta, Uztaritzeko kantonamendu osoak eta Azkaine herria barne dira Errobi/Urdazuri **etiketa** horren barnean. Herria

«Jarri diguten punp pop **etiketa** kendu nahi dut», adierazi du Kele Okereke kantariak. Berria - Kultura

Zer da izena? Izanari eransten zaion **etiketa** -barkatu, label- hutsa, ala norbere izanari darion puxka esentziala, norberaren izaeraren ispilu? Joxerra Garzia

Medioek **etiketa** hori jarri dieten arren, kritikoak ez dira globalizazioaren aurkakoak -izan ere, globalizazio fenomenoaren adibide baitira berak ere-, ekonomiaren globalizazio eredu jakin horren kontrakoak baizik. Iñaki Heras

Ez dela "pornografikoa" igurtzi hau edo bestea, sexu-jolas hau edo bestea, jarduera hau edo bestea, baizik eta "pornografiko" **etiketa** jartzen zaiola garai jakin bateko eredu kulturalak onartu nahi ez duen guztiari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bakoitzak bere argibidea bilatzen dio, sintoma bat ikusten du eta, azkenik, **etiketa** bat ezartzen dio arazoari. Luis Elberdin

Hemen behar adina denbora pasatu duzu ongi jakiteko gauzak berriz antolatzen saiatzen den edozeini erradikalaren **etiketa** paratu eta inolako begiramendurik gabe bota egiten dutela. Fernando Rey

Ezin da ebitatu besteek guri **etiketak** jartzea zeren eta bestela, bizitza guztian lan horretan jardungo genuke, **etiketak** kendu nahian. Ana Urkiza

Etiketa hori belaunaldi jakin batekoa izateak, euskal literaturak errekonozitutako lehenengo emakumea izateak dakarrela esango zenuke? Ana Urkiza

Etiketek gehiegi markatzen dutela esan nahi duzu? Ana Urkiza

Berrogeita hamar urterekin lotsa galdu duela dio, aurreiritzi eta **etiketei** beldurra. Berria - Kultura

Zenbateraino hitz egiten da sailkapen horretaz emakumezkoek idatzitako lanaren kalitateagatik edo ezaugarriengatik eta zenbateraino jarri zaien **etiketagatik**? izena aipatu beharrean, beti aurkitzen zuen ordezko **etiketa** iraingarri bat: "silikonaren menpekoa" deitzen zion batzuetan, edo "lesbiana birziklatua", maizago eta garratzago. Ana Urkiza

Etiketa gorria eta **etiketa** urdina bereizten ditut. Itziar Otegi

Ez dugu **etiketa** politikorik (jarrera politikoak hartuko ditugu ordea). Txema Ramirez de la Piscina

Emakume zuriek *sexual test* deitzen genuen, gizon beltzen larru proposamenei ezezkoa emanez gero arrazista **etiketa** ipintzen ziguten. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da etiketa (4); **dute etiketan** (3); **eta etiketa** (11); **eta etiketak** (4); **etiketa bat** (8); **etiketa eta** (3); **etiketa hori** (9); **etiketa hori jarri** (4); **etiketa jarri** (8); **etiketa jartzen** (5); **etiketak eta** (5); **etiketak ez** (4); **etiketak jartzeko** (3); **etiketak katalanez** (8); **etiketak katalanez idazteko** (3); **etiketan adierazi** (5); **etiketan adierazi beharko** (4); **etiketarik gabe** (5); **etiketarik gabeko** (3); **euskarazko etiketak** (4); **produktuen etiketak** (6); **produktuen etiketak katalanez** (3); **produktuen etiketetan** (5)

---

etiketa[2] *iz* hotsandiko ekitaldietarako, eskuarki janzkeran, finkatzen diren arauen multzoa.

Etiketa txiki batek saltzailearen berri ematen zuen: Darryl Barrett Store. Bernardo Atxaga

Etiketaz jantzita zihoazen hirurak, txalekodun trajeaz gizaseme biak eta sorbaldak agerian uzten zituen tiretako soineko urdinaz Mentxu. Josu Landa

Parisko gau-jantzi bat izan nahi nuke neuretzat eta **etiketa**-jantzi bat zuretzat... luxuzko jatetxe batera joango ginateke afaltzera eta gero, antzokira. Lopez de Arana

Mister Lewinek ez zeraman soinean, jakina, inolako **etiketa**-jantzi ilunik, eta dantzatu ere mazurka modura egiten zuen dena. Joxe Austin Arrieta

Arrazoi osoa du Atxagak, kultura ekitaldi ofizial hauetan indioak bezalakoak gara: euskal kulturako ordezkariak gonbidatzen hasiko balira, nola Colonek Ameriketatik Gaztelara ekarri zituen indioei behatzen zien Gorteak, hala begiratuko lieke, beldur naiz, kultura ofizial honetako gorteak gure baskoei ere **etiketa**-trajearen gainetik. Pello Salaburu

Cassie negar-zotinka ari zen, txakurtxoa zaunka eta Costello ikustezina "Polizia" oihuka eta **etiketa**-jantzidun gizon ezezagun baten besoetan erori zen konorterik gabe. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etiketaz jantzirik (3)

---

etiketadun *izond* etiketa duena.

Bilkari **etiketadunak** kutxatilategitan sailkatuta zeuden, horma-armairuen barruan, jakintza-adarka sailkatuta: literatura, filosofia, zientzia eta teknika. Jon Muñoz

Azken zokoraino miatu nuen, alferrik, Ikastegiaren erraietan: dozenaka anpoila **etiketadunak** aurkitu nituen [...] baina sodiorik batere ez. Juan Garzia

---

etiketatu, etiketa(tu), etiketatzen **1** du *ad* etiketa jarri.

Hemengo kargudunak saiatzen dira hemen atxikitzera Bartzelonan fabrikatu xurgak Frantziako merkaturako lana (estali, **etiketatu** eta bidali). Herria

Baina benetan literatura maitatzen dutenek edo literaturaz beste pertzepzio bat dugunok, badakigu literatura ezin dela gehiegi **etiketatu**, kaxoitxoetan sartu eta armairuan giltzapetu. Ana Urkiza

Saskiak letra eta zenbaki beltzez **etiketatuak** zeuden. Karlos Zabala

Hemen, ontzi honetan, aldian behin egin dizkidazun oparitxoak dauzkat gordeta, behar bezala zenbatuta eta **etiketatuta**. Antton Olano

Txotxongilo ikuskizun bezala **etiketatuta** zetorren lana performance eragingarri bihurtu zaigu egiatan. Berria - Kultura

Isiltasunez inguratuta bizi izan dira: kritika nahikorik eta argirik gabe, merezitako errekonozimendurik gabe, irizpide maskulinoen arabera egindako irakurketari esker **etiketatuta**... interesik ez zaie agertu. Ana Urkiza

XML edozein dokumentu **etiketatzeko** hizkuntza da. Berria - Euskal Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Pareta guztiak liburuz beteak, eta, idazmahaia buztinki **etiketatuz** josia ikusi arren, ez zitzaidan iruditu, lehen begiratuan behintzat, antikuario baten etxea izan zitekeenik hura. Joxe Austin Arrieta

---

etiketatze *iz* etiketa jartzea.

Paketatzea, **etiketatzea** edo muntaia txikiak bertan egin ditzakete. Berria - Ekonomia

Euskarazko **etiketatzea**, oraindik normalizatzeke. Berria - Harian

Arau horietako zenbait zehaztu nahi dituzte oraingoan bileran, bereziki produktuen **etiketatzearen** inguruan. Berria - Gaiak

Produktu transgenikoen **etiketatze** arauak jarri nahi dituzte Curitibako bileran. Berria - Gaiak

Gaur zortzi sartu zen indarrean EB Europako Batasunaren **etiketatze** araudi berria. Berria - Euskal Herria

---

etiketazio *iz* etiketatzea.

Erosketak: Elikagaiak erostean, **etiketazioari** eta iraungitze-datari arreta berezia eskaini behar zaio. Berria - Harian

---

etiko 1 *izond* etikaren araberakoa dena.

Zorionez, badaude ameslari batzuk, oraindik poesiaren eta literaturaren funtzio **etikoan** itsu sinisten dutenak. Ana Urkiza

Norberaren kontzientzia **etikoak** aginduta. Markos Zapiain

Gure eguneroko bizitza betetzen dute: balio **etiko**, estetiko, erlijioso, zientifikoek. Joxe Azurmendi

Horrek, jakina, muga **etikoak** eta ekologikoak eskatzen ditu, eta, azken batean, munduan gaur egun nagusi den sistema sozio-ekonomikoaren aldaketa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zinez uste dut Frantziako Elizak bere sinesgarritasun **etikoa** galdu duela XIX. mende hondarrean, Estatuari amore eman diolarik eta onartu duelarik bere apez eta apezgaiek soldaduskaren egitea. Piarres Xarriton

Eragin politikoen, sozialen eta **etikoen** ebaluazioa. Askoren artean

Balioen krisia deitu ohi dena egiaz krisi sozial, kultural, politiko, **etiko** konplexu bat da. Joxe Azurmendi

Arazoa ez zela zuzenki literarioa, baizik eta **etikoa**: nik egia isiltzera, ez zen izango zeru azpian ez irakurlerik ez kritikaririk nire plajioari neurria hartuko zionik Azterketa horiek, esaterako, **etikoak**, ontologikoak edo epistemologikoak ziren, hizkuntza aztertzen bazuten ere. Bernardo Atxaga

Filosofia morala hiru esparru nagusitan bana daiteke: teoria **etikoak** (edo etika arauemailea edo normatiboa), etika aplikatua (edo etika praktikoa) eta metaetika. Askoren artean

Hemen zerbait **etikoa** dago baldin eta etika bera ez bada behintzat. Piarres Xarriton

Jendeak galderak egiten zizkion bere buruari halakorik onartzea **etikoa** zen ala ez. Pello Salaburu

· Modu ez **etikoan** lehiatzeko gero eta aukera ugariagoak dituzte. Iñaki Heras

2 (hitz elkartuetan)

Zientzia eta bere iritzi **etiko**-politikoak nahaski transmititzea ere amarru egitea litzateke. Joxe Azurmendi

Moda-bildumaren garrantzi **etiko**-filantropikoa azpimarratzen ari da une honetan: [...]. Patxi Iturritegi

Are gehiago, definizio **etiko**-zentriko eta logozentriko horiek onartzen dituenak beste definizio batzuk uzten ditu bazterrean. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arazo etiko (3); **arazo etikoak** (5); **arrazoi etiko** (4); **arrazoi etiko edo** (3); **arrazoi etikoengatik** (7); **balio etiko** (5); **balore etiko** (3); **elkartasun kode etikoa** (4); **eta etikoa** (6); **etiko bat** (10); **etiko batetik** (5); **etiko edo** (7); **etiko eta** (27); **etikoa egitea** (3); **etikoa eta** (8); **etikoa ez** (3); **etikoa izan** (3); **etikoa sortu** (5); **etikoak ere** (3); **etikoak eta** (10); **ez da etikoa** (7); **ez dela etikoa** (4); **ez etikoa** (3); **eztabaida etiko** (4); **eztabaida etikoa** (7); **eztabaida etikoa sortu** (3); **ikuspegi etiko** (3); **jarrera etiko** (5); **jokabide etikoa** (5); **judizio etikoak** (3); **kode etiko** (4); **kode etikoa** (20); **kode etikoa egitea** (3); **kode etikorako** (3); **konpromiso etikoa** (3); **oinarri etiko** (4); **oinarri etikoak** (3); **oinarritutako teoria etikoak** (7); **oinarritutako teoria etikoen** (3); **printzipio etiko** (3); **teoria etiko** (9); **teoria etikoak** (12); **teoria etikoen** (8)

---

etikoki *adlag* etikaren arabera.

Borreroa beti saiatzen da kondenatuaren lekuan ipintzen; zinez pentsatzen baitu ez dagoela, ez **etikoki** ez moralki, bere lana betetzeko beste erarik. Karlos Linazasoro

Konponbide hark pozik utzi zituela denak, hala **etikoki** nola estetikoki. Iñaki Iñurrieta

Etikoki errudunak dira, baina legalki arrazoi dute. Fernando Rey

Errealitate enpirikoarekiko harreman arrazional eta nahimenezko guztiak desegiten dituen autismo baten eraginpean erortzen da, **etikoki** eta intelektualki antzua den kontenplazio batera kondenatzen du artista. Josu Zabaleta

Liburuzainari borreroaren lana **"etikoki** zuzena eta estetikoki ederra" iruditzen zaio, baina pentsatzen du jende gutxiegi urkatzen dutela, Gobernuaren legeak oso direla eskuzabalak. Karlos Linazasoro

Espainiako Kongresuko EAJko bozeramaileak dioenez, indarkeria **etikoki** onartezina dela ez ezik Europan zentzurik edota bideragarritasunik ez duela ere ikusarazi behar zaio ETAren «harrobiari», horrela bakarrik lortuko baita «bukaera eraginkor eta iraunkorra». Berria - Euskal Herria

Borroka armatuaren eta kale borrokaren aurka nago ni, guztiz, **etikoki** suntsigarri eta politikoki kaltegarri iruditzen zaizkit eta. Joxerra Garzia

Judas Iskariotek Jesus Nazaretekoari eginiko traiziotik haste, traizioa **etikoki** onargarria denaren zerrendan azken postuetan kokatu du mendebaldeko zibilizazioak. Berria - Kultura

Etikoki, bereziki, baina baita ekonomikoki ere, erabat defendagarriak dira lan mota horien gaineko debekuak. Iñaki Heras

Heriotzaren gaineko hausnarketa ere, heriotzaren ikonografia, protesta egiteko, «erasoa egin eta **etikoki** eta politikoki inarrosaldia lortzeko. Berria - Kultura

Posibilitaterik ez al dagoen razionalki eztabaidatu eta behin betiko garbi ebazteko, **etikoki** eta razionalki demokrazia nazismoa baino hobea dela berez eta beti. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da etikoki (3); **eta etikoki** (5); **etikoki eta** (6); **etikoki ez** (3); **etikoki zuzena** (3)

---

etikotasun *iz* etikoa izateko nolakotasuna.

Nirea zerbitzu mota bat baizik ez duk -zuritzen zuen bere burua, hautatutako ogibidearen **etikotasun** zalantzagarriaz erasaten genionean-. Aingeru Epaltza

Etikotasun hutsaren sistemaren sorkuntzan halabeharrez jaso beharko bailituzkete eginbeharraren adigaian gainditu beharreko oztopo gisa edo eragingarri bihurtu beharko ez lukeen bizigarri gisa. Ibon Uribarri

Etikotasunak sistema bat osatzen du bere baitan, baina ez zorionak, moraltasunari zehazki egokituz banatua izan ezean. Ibon Uribarri

Mundu baten ongi gorena arrazoizko zerizanaren **etikotasunarekin** proportzio zuzenean dagoen zoriontasunak eratzen du, horrela arrazoizko zerizanak zorionaren duin bihurtzen direla. Ibon Uribarri

Asmo praktiko hau edo trebetasunarena edo **etikotasunarena** da, lehena, ausazko eta beharbadako helburuetarako, bigarrena, berriz, behar-beharrezkoetarako. Ibon Uribarri

Eta ez dut sekula pentsatzen gure ekintzen onuran edo kaltean, **etikotasunean** edo **etikotasun** faltan. Harkaitz Cano

---

etileno *iz* gas koloregabea eta sukoia, zapore gozokoa, hainbat erabilera dituena.

PVCaren produkzioan aska daitezkeen produktuen artean kloroa, **etilenoa**, hidrogeno kloruroa eta monomeroa bera (binil kloruroa) ditugu. Berria - Gaiak

Polietilenoaren kasuan errepikatzen den unitatea **etilenoaren** eratorria denez, hortik bere izena. Berria - Gaiak

---

etiliko *izond* gai azukretsuen artziduratik lortzen den alkoholari dagokiona edo alkohol horrek eragiten duena.

Intoxikazio **etilikoengatik** iaz baino ehuneko berrogei gutxiago begiratu behar izan dituzte, eta batez ere, bilbotar guztiok nabarituko zenuten bezala, jai baketsuak izan dira, istilu politikorik gabeak. Unai Iturriaga

Bere bertsioaren arabera, suhiltzaileek bere gain hartu zutenean, «bizirik eta bere ezaguera osoan» zegoen, «nahiz eta egoera **etiliko** gogorrean egon». Berria - Ekonomia

Sasi-ausardia **etilikoa** aprobetxatu behar zuen. Fernando Morillo

Argi-malkoak iruditu zitzaizkion; urperatze **etiliko** baten hondarrak balira bezala. Fernando Morillo

Lekuko fidagarrien bertsio baten arabera, koma **etilikoaren** lausoak jota eraman zuten erietxera, eta han hil zen. Anjel Lertxundi

Kurt, filmatze-taldeko partaide gehienak bezala, ezkertiarra zen, nabarmena zenez, baina ez zuten gai politikoa behin ere ukitu, haien arteko elkarrizketa **etilikoetan**. Iban Zaldua

-Goazen -haserre, eta negar **etiliko** bati ekin dio, Zigorren brusa koloretsuaren gainean. Eider Rodriguez

Gutxika-gutxika, mutilaren begiak laino **etilikoz**, somniferoz estaltzen hasi ziren. Jasone Osoro

---

etimo *iz* beste hitz edo erro batetik datorren hitz edo erroa.

Egunkari honetan bertan asteartean, aspaldiko partez, nekearen **etimoak** limurtuta, hiztripu eta gutzi: "La Paz hiriburura iritsi da nekarazarien martxa". Iñigo Aranbarri

Zergatik baliatzen da hainbeste gaztelerazko prentsan eta egundo ez euskarazkoan **etimoz** eta formaz ezin euskaldunagoa den etarra? Iñigo Aranbarri

---

etimologia **1** *iz* hitz baten etorkia; hitzen etorkia aztertzen duen zientzia adarra.

Baina **etimologia** edo hitzen erroen jakintza ez da biziki segurra. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Sarrera honen hasieran "kultura" hitzaren **etimologia** eta historia sakontzen dira. Askoren artean

Gure hitzen **etimologiari** beti euskal erroa bilatzeak ez dirudi oso tentu oneko. Patziku Perurena

Bestetan, ez da egokitasun ezaren kausa ikusten; hainbat bitxikerik **etimologiaren** aitzakia ere ez dute. Isabel Arrigain

Etimologiaren helburua ez da hitz bakartuak bakarrik esplikatzea; eraketako elementu, aurrizki, atzizki eta abarren historia ez ezik, hitz familien historia egiten du. Isabel Arrigain

Etimologia ez da linguistika ebolutiboaren zati bat; orobat ez da beste ikasgai bat; **etimologia** gertaera sinkroniko eta diakronikoei buruzko hatsapenen gauzatze berezi bat da. Isabel Arrigain

Hitzak aldaera asko baititu bazterretan: *oale, ogale, ozal, ozala, ozale, pozale, bozale*.., eta **etimologia** ilundu egiten digute; ez baitirudi guziek erro bera dutenik. Patziku Perurena

Ovidio propio jardun zen hitz honi buruz, eta berak damaigu, jakintsu askok ontzat hartu duten **etimologia** edo hitzaren ezpala: *aprilis* horrek *aperire, abrir* / *ireki* dioen aditzetik datorren adjektibo izenlaguna behar du izan. Pello Zabala

Ekonomia, jatorrian, etxeko gobernamenduarekin zerikusia zuten ondasun eta arazoez arduratzen zen; hala azaltzen du bere **etimologiak**, ezen ekonomia terminoak bi greziar hitzen sinbiosian baititu erroak: *oikos,* etxea, eta *nomos*, gobernua edo gidaritza. Iñaki Heras

Edo agian esan beharko litzateke euforia: "minari edo sufrimenduari eusteko gaitasuna", **etimologiaren** arabera. Bernardo Atxaga

Vitruvioren "symmetria", guk *proportzioa* itzuli duguna, **etimologiaz** kon-mensurazioa da, elkarren artean erlazionatutako neurri-multzo konplexua, zeinetan moduluak, oinarrizko neurri den neurrian eta kontzeptu bezala ere hartzen den neurrian, funtsezko egitekoa betetzen baitu. Santiago Iruretagoiena

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Etimologia okerrak. Iñaki Arranz

Maiz, **etimologia** faltsu batek finkatzen du grafia. Isabel Arrigain

Hitz honek begien bistako **etimologia** du: *zal(di) alea*, nahiz gero abere guzietara hedatu. Patziku Perurena

Aurreko definizioek beste eremu batera garamatza: txantxetako **etimologietara**, hain zuzen. Iñaki Arranz

Abdomena (lat. **etimologia** zehaztugabea)... gorputzaren behealdea, diafragmaren eta pelbisaren artekoa. Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etimologia kontuetan, protesia, paragogea eta epentesia ditugu, hurrenez hurren, fenomeno hauen izen espezifikoak, eta zilegi bekigu geurean ere erabiltzea. Iñaki Arranz

Denbora gutxi dut, baina, **etimologia**-bitxikerietarako. Anjel Lertxundi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Honetxetan sumatzen diet ezinik handiena euskalari harropoxtu horiei: euskararen barne historian, euskararen barne **etimologian**. Patziku Perurena

Herri **etimologia**, egoera jakin batzuetan bakarrik gauzatzen da, eta hiztunek oker asimilatzen dituzten hitz arraroak, tekniko zein atzerrikoak, dira, bakar-bakarrik, herri **etimologiaren** eragina jasaten dutenak. Isabel Arrigain

Analogiaz eraturiko formak arrazionalak dira, eta herri **etimologiak**, berriz, zoriaren halabeharrez jokatu ohi du eta desegokikeria bat lortu ohi du. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etimologia eta (3); **etimologia ez** (3); **etimologiak berak** (3); **herri etimologia** (6); **herri etimologiak** (6); **hitzaren etimologia** (8); **hitzaren etimologiari** (3)

---

etimologiazale *iz* etimologien zale den pertsona.

Hitz batean beste hitz baten arrastoa sumatu eta hortik esanahia azaldu nahi izatea, horixe da **etimologiazale** askoren guraria. Iñaki Arranz

Informazio handia biltzen du hiztegiak, eta filologoek, gramatikariek, fonetikaz arduratuta daudenek, idazleek edo **etimologiazaleek** estimatuko dute. Berria - Harian

---

etimologiko *izond* etimologiarena, etimologiari dagokiona.

Hitz berriak euskaratik bertatik sortzea nahiz kanpotik hartzea aipatu zuen, baina kanpokoak idazteko orduan, ortografia **etimologikoa** gabe, euskararen ohiko jokabidera egokitzea: *psikologia* (ez *psykhologia*). Koldo Zuazo

Analogiaz orain arte esan dugun guztiaz garbi geratu da hor dagoela ikerketa **etimologikoaren** alde garrantzitsuena. Isabel Arrigain

Zeregin didaktikoa bete behar dute [museoek], zalantzarik eta etenik gabe, eta sormena bultzatu behar dute, terminoaren jatorr **etimologikoarekin** bat. Berria - Kultura

Bere saio **etimologiko** burugabeek ere isilunearen estetikan dute sostengu, hizkuntzatik kanpo, alegia. Anjel Lertxundi

Frantziskok oso gogoko du hitz eta esapideen balio **etimologikoa** argitara ekartzea. Askoren artean

Kezka **etimologikoa** ere badago; garai batzuetan, nagusi izan da, Berpizkundean, adibidez. Isabel Arrigain

Azken ohar **etimologikoa** : sena=osasuna; morboa=gaitza. Patziku Perurena

---

etimologikoki *adlag* etimologiaren arabera.

Maizenik, tradizioarekin bat datorrena, gizarteak moraltzat hartu ohi du; inmorala, **etimologikoki** , "ezohikoa" besterik ez da hain zuzen. Joxe Azurmendi

Beretzat txandakatzeak **etimologikoki** (sic) bat denaren forma ezberdinak dira. Lourdes Oñederra

Euskal Herria euskararen herria da **etimologikoki** ere, eta euskara gabe ez dago Euskal Herririk. Berria - Kultura

Erlijio hitza **etimologikoki** azaldu zuen lehendabizi. Berria - Euskal Herria

---

etimologista *iz* hitzen etimologia aztertzen diharduen pertsona.

Etimologista afizionatu gehiegi dago hemen, hori da gure zoritxarra. Iñaki Iñurrieta

---

etiologia *iz* gauzen –eskuarki eritasunen– azterketa.

Kausa, **etiologia** -sakon-usteko greko txepelen batek asmatu zuena- beti edo gehienean da kausa eragozlea, zapuztailea, galarazlea eta ixilarazlea, hitzaren eta arrazoiketa garbiaren etsaia. Propietate funtzionalen definizioan ezinbestekoa da funtzio horiek "zertarako" (izan) diren azaltzea, eboluzioaren ikuspegitik, **etiologiaren** ikuspegitik edo beste ikuspegiren batetik. Iñaki Segurola

---

etiologiko *izond* etiologiarena, etiologiari dagokiona.

Funtzio **etiologikoa** . Askoren artean

---

etiope *iz* etiopiarra.

Oroitu nintzen **etiopeen** artean erraten dela ziminoak berariaz ez direla mintzatzen, gizonek trabailaraz ez diezaieten, eta goganbehar edo beldurrari egotzi nion Argos-en isiltasuna. Juan Garzia

---

etiopiar **1** *izlag/izond* Etiopiakoa, Etiopiari dagokiona.

Beharbada urak **etiopiar** mendi garaien barruan handituko dira, eguzki oro-argitzaileak bere errainuen beroz urtzen dituen elur zuriak zelaietara jaisten direnean. Xabier Amuriza

Felipe eta **etiopiar** ministraria. Elizen arteko biblia

Etiopiar eta libiar gudarostea ere izugarria zen, beren gudu-gurdi eta zalditeria handiarekin. Elizen arteko biblia

Arreba konturatzerako alde egin zuen Lucasek, jatorri errusiarreko espia ingeles baten zuhurtziaz eta jatorri **etiopiarreko** ostruka frantses baten arintasunaz. Unai Elorriaga

David Gavro israeldarrak egina, jatorri **etiopiarra** duen israeldar baten bidaia segitzera gomitatzen du. Berria - Kultura

Kenenisa Bekele atleta **etiopiarrak** ez du epe laburrean maratoian aritzeko asmorik. Berria - Kirola

Ebed-Melek zeritzan errege-jauregiko goi-funtzionario **etiopiarrak** jakin zuen Jeremias putzura bota zutela. Elizen arteko biblia

Hitzordu nagusia eguerdian iraganen den bazkari **etiopiarra** dutela azaldu zuen Ganix Grabieres antolatzaileak. Berria - Kultura

2 *iz* Etiopiako biztanlea.

Etiopiarrak hegoaldean, asiriarrak iparraldean. Elizen arteko biblia

Kros motza **etiopiarren** festa izan zen: Bekelek urrea, Gebremariamek zilarra eta Maregu Zewdiek brontzea. Berria - Kirola

Hameka miliun **etiopiar** omen dira gosetearen hegi hegian bizi direnak. Herria

Aldatu ote diote, bada, jainkoek patua, ni **etiopiarren** lurretan nenbilela? Juan Kruz Igerabide

Orduan, Jaunak hondatu egin zituen **etiopiarrak** Asaren eta Judakoen aitzinean, eta **etiopiarrek** ihes egin zuten. Elizen arteko biblia

Egiptotik, mila eta berrehun gudu-gurdi, hirurogei mila zaldizko eta zenbatezin ahalako libiar, sukiar eta **etiopiarrez** osoturiko gudari-multzoarekin. Elizen arteko biblia

Israeldarrok, niretzat ez dago alderik zuen eta **etiopiarren** artean. Elizen arteko biblia

Asiriako erregeak ere halaxe eramango ditu egiptoar presoak eta **etiopiar** erbesteratuak, zahar eta gazte, larrugorritan eta oinutsik, ipurdia agerian dutela. Elizen arteko biblia

Behinola, Zerah **etiopiarra** Asaren kontra abiatu zen, milioi bat gudari eta hirurehun gudu-gurdirekin, eta Marexaraino heldu zen. Elizen arteko biblia

Bekele **etiopiarrak** eta Johnson australiarrak irabazi dituzte lehen urrezko dominak. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Israeldar-**etiopiarrak** gara; hona herrialde hau eraikitzera etorri ginen, beste hainbat etorkin judu bezala. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bekele etiopiarra (5); **bekele etiopiarrak** (5); **eta etiopiarren** (3); **etiopiarra eta** (4); **jatorri etiopiarreko** (3); **kenenisa bekele etiopiarra** (3); **kenenisa bekele etiopiarrak** (3)

---

etnia **1** *iz* kulturaz eta hizkuntzaz batasun bat osatzen duten gizabanakoen multzoa.

"Nazioa" eta "nazionalismoa" gogoko ez dituzten batzuek, Nazioa eta nazionalismoa gutietsi beharrez-edo, baso, sasi edo oihan usaina darion **"Etniaz"** edo "etnizismoaz" mintzo zaizkigu. Piarres Xarriton

Hainbat **etniatako** jendea ere badago: arabiarrak, kurduak, turkmenak... Berria - Mundua

Hainbat **etnia** eta herrietan erroak dituen baina gaur egun nagusiki eslaviarra den Ukrainako zati bat, Kievan-Rus izenarekin, Europako estaturik boteretsuenetako bat izan zen Erdi Aroan. Berria - Mundua

Mendebaldean ohizkoak diren gizarte-arauak eta portaerak bazter batera utzi eta bizimodu ezohizkoa egiten zuten -edo duten- talde edo **etniak** ugariak izan dira Europan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oker dabiltza sasi jakintsu horiek ere; ez dakikete ber gauza direla grekozko *ethnos* hitzetik datorkigun **"etnia"** eta latinezko *natio* hitzak sortu digun "nazioa". Piarres Xarriton

Biolentziaren monopolioa legez, berak dauka **etniaren** monopolioa. Joxe Azurmendi

Azken lau egunetan ehun pertsona hil dira bi **etniaren** arteko borroketan. Berria - Mundua

Oinarrian tutsi eta hutu **etnien** arteko gatazka duen gerrak 300.000 hildako baino gehiago eragin ditu azken hamar urteetan Burundin. Berria - Mundua

Rigoberta *quiché* **etniako** gazte bat zen, Guatemalako San Miguel Uspantángoa. Pablo Sastre

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ez da lehen aldia bertan **etnia** zuluaren eta xhosaren artean borroka odoltsuak gertatzen direna. Berria - Mundua

Irakeko bi **etnia** nagusien arteko elkartasuna eta babesa haratago doa. Berria - Mundua

Funtsezko gatazka **etnia** bakar baten zerbitzura dagoen aginte uniformizatzailearen eta mendean harturiko **etnia** hilduratuaren artekoa da. Markos Zapiain

Berriki **etnia** ezberdinen artean liskarrak egon dira hirian, kurduek, arabiarrek eta turkmenoek berezkotzat baitute hura. Berria - Mundua

Ez da, espazio politiko ireki bezala, **etnia** tradizionalen bizikidetzarako lekua, baizik horien ukoa -Eliza katolikoa bezalaxe-. Joxe Azurmendi

Etnia arabiarreko milizia horiek giza eskubideak urratu dituzte Darfurko eskualdean, bereziki, herritarrak bortxatuz eta hilez. Berria - Mundua

Albaniar **etniako** bi hautagai ere badira presidentziarako lehian. Berria - Mundua

Ez du euskal **etniaren** aldarrikapenik egiten; eta egiten badu, horren kritika egiten du. Ana Urkiza

Afganistango **etniarik** zabalena. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste etnien (3); **bi etnia** (3); **bi etniaren** (3); **bi etniaren arteko** (3); **den etnia** (3); **eta beste etnien** (3); **eta etnia** (15); **etnia askotako** (3); **etnia bakarra** (3); **etnia bat** (3); **etnia edo** (4); **etnia eta** (10); **etnia ezberdinen** (3); **etnia ezberdinen artean** (3); **etniak eta** (3); **etniako kide** (3); **etniakoa da** (4); **etnien artean** (4); **etnien arteko** (16); **kultura eta etnia** (3)

---

etniko **1** *izond* etniari dagokiona, etnian oinarritzen dena.

Kultur aniztasuna eta aniztasun **etnikoa** integratzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kultur aniztasuna eta aniztasun **etnikoa** integratzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Txinako unibertsitate batek banku genetikoa osatu du 25 gutxiengo **etnikoren** datuekin. Berria - Gaiak

Mentalismo hori eta nazionalismo **etniko** hau lotuz, Volksgeist hitza sortu zen, hots, herri bakoitza bereizten duen espiritu egonkor eta ezberdina. Askoren artean

Independentziaren aldeko borrokek gorroto **etnikoa** eragin zuten. Berria - Harian

Tribalismoa, zokokeria morala, komunitarismo **etnikoa** eta, noski, nazionalismoa -bai zapaltzailea eta bai baztertu zalea- harriak dira, ahalegin zibilizatzaile unibertsala oztopatzen dutenak. Esteban Antxustegi

Sudango talde **etniko** nagusiak jatorri arabiarreko nomadak eta nekazari beltzak dira. Berria - Mundua

Azterketa horretan, nazio **etnikoei** edo kulturalei eskubide kolektiboak aitortzen ez dizkiotenen artean sailkatu ditu Frantzia eta Espainia; gizabanakoek eskubideak bermatuta daude, baina eskubide kolektiboak ez daude aitortuta. Berria - Harian

Nazionalista **etniko** aseezinengandik oso gainetik dagoen Estatu demokratak beretzat esklusiboki nahi du "nazio" hitza. Joseba Zulaika

Horiez gainera, egitura politikoen ahultasuna eta gogorkeria **etniko** edo erlijiosoaren zabalkundea ere aipatu behar dira. Koro Navarro

Jazarpen politikoa, erlijiosoa eta **etnikoa** izan zen. Berria - Harian

Berri horiek jakitearekin, Erromako elizak bidali zigun apezpikuak garbiketa **etnikoa** egin zuen jarraian Baionako seminarioan, Frantziako IV. edo V. Errepublika Bakar eta Zatiezinaren onetan. Piarres Xarriton

Gutxiengo **etniko** eta inmigrante gehienak etorkizun hobeago baten bila pilatzen direla gure hirietan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

"Gogorapena bizitzaren zentzu **etnikoa** da, errepikapena zentzu modernoa da", idatzi zuen Kierkegaardek. Joseba Zulaika

Ezaugarri **etnikoa** duten alderdiek ordezkatzen dituzte gutxiengo horiek. Berria - Mundua

Lau solairuko etxeak ziren gehienak, adreiluzkoak, elkarri itsatsita; behekoan denda ugari eta jarduera guztietakoak kokatzen ziren, eta tarteka, jatetxe **etniko** degradatu/amerikanizatuak edo kafetegi korrienteak, salami, arrautza, kafe eta milatan erabilitako olio usainekoak. Iñaki Zabaleta

Doinu zeltiarrek, erritmo **etnikoek** eta euskal musika tradizionalak bat egiten dute taldearen izena bereganatu duen lehen lanean, Kukuma diskoan. Berria - Kultura

Tradiziozko zaporeak ezagutu ez dituen jendeak eskaturik eta garraio modernoak azkar eta merke bilakatuta, elikagai **"etnikoak"** biderkatu egingo dira. Edorta Agirre

Bistan da kultur aniztasuna, nola **etnikoa**, hala erlijiosoa edo sexu hautaketari dagokiona, beste inon baino nabariagoa izan dela eta beste inon baino hobeto bideratu izan dela hirietan. Bernardo Atxaga

Estatua dagoenean, nazionalismoa zibikoa da, eta ez dagoenean, **etnikoa**. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Piriniar unitate **etniko**-kultural primitibo horren agerpen polimorfoak. Pello Salaburu

Jazz eta musika **etniko** kontzertua Miarritzen. Berria - Kultura

Legerik ez izateak eramaten du Alexkid jazz **etniko** giroko musikak ere egitera. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta etnikoa (3); **eta garbiketa etnikoa** (4); **etniko eta** (14); **etnikoa da** (4); **etnikoa egin** (3); **etnikoa egitea** (4); **etnikoa egitea leporatu** (3); **etnikoa egiten** (3); **etnikoa eta** (3); **etnikoak eta** (5); **garbiketa etniko** (4); **garbiketa etnikoa** (25); **garbiketa etnikoa egin** (3); **garbiketa etnikoa egitea** (4); **garbiketa etnikoa egiten** (3); **gatazka etniko** (3); **gutxiengo etnikoak** (4); **gutxiengo etnikoen** (3); **izaera etniko** (3); **jatorri etniko** (3); **talde etniko** (11)

---

etnikoki *adlag* etnien arabera; alderdi etnikotik.

Lehen ministro berriak Kosovo **etnikoki** banatzea proposatu du. Berria - Mundua

Nazionalismo guztiek, estatua izan ahal ez izan, hizkuntza politizatzen dute, **etnikoki** hau da, hitz egiten ez dutenak diskriminatuz, edo zibikoki hau da, biztanle guztiak hizkuntza ezagutzera behartzen. Berria - Euskal Herria

Erromatarrek ideia aristoteliko eta estoikoak jaso zituzten maila teorizatzailean, baina praktikan lege naturala malguagoa zen, **etnikoki** inperioa konplexua zelako. Askoren artean

Carla del Ponte fiskalak Serbia Handia eratu nahia (estatu **etnikoki** garbia) leporatzen zion, besteak beste. Berria - Harian

Inoiz ofizialki onartu ez badute ere, sinetsita daude euskaldunak desberdinak direla, **etnikoki** eta kulturalki. Berria - Harian

AEBetako hainbat ekintzaile talde **etnikoki**, sozialki eta politikoki baztertuta dauden giza taldeen parte-hartzea sustatzen ari dira hauteskundeetan. Berria - Mundua

---

etnismo **1** *iz*

Guretzat, **etnismoa** da erlijio, zibilizazio, defentsa eta abarreko mailan gertaturiko askotariko harremanen ondorioz lortzen den batasuna. Isabel Arrigain

Gaur egun hizkuntza horiek dituzten nazioak dira, gehiagozko edo gutxiagozko neurrian, **etnismo** horren gizarte mailako ondorea zuzenean jaso dutenak. Isabel Arrigain

Aipatu dugun elkarrekikotasunezko erlazio hori **etnismoaren** eta hizkuntzaren artean gauzatzen da, hain zuzen: gizarte lotura dela eta, erkidego linguistikoa sortzen da, eta agian, ezaugarri erkide batzuk hizkuntza osoaren gainean hedatzen dira. Isabel Arrigain

Ezin ukatuzko froga iruditzen zaigu hizkuntza erkidego bat ez ezik, erakunde komunak zeudela, **etnismo** italiotaren eta **etnismo** germanikoaren artean. Isabel Arrigain

Erdi aroaren hasierako denboretan, adibidez, **etnismo** erromarra izan zen (erkidego linguistiko bat, alegia), haien artean inolako lokarri politikorik ez zuten herriak lotzen eta batzen zituena. Isabel Arrigain

Baina hizkuntza erkidegoak erkidego sozialeraino garamatzala egia izanik, laguntzen al digu hizkuntzak, batera, **etnismo** komun horren izaera ezagutzen? Isabel Arrigain

---

etnizismo *iz* nazionalismo etnikoa.

Esta-tu-Nazio horren apostoluek irri egiten dute nazionalismo periferikoen **etnizismoaz**. Joxe Azurmendi

"Nazioa" eta "nazionalismoa" gogoko ez dituzten batzuek, Nazioa eta nazionalismoa gutietsi beharrez-edo, baso, sasi edo oihan usaina darion "Etniaz" edo **"etnizismoaz"** mintzo zaizkigu. Piarres Xarriton

Bere abertzaletasun sabindarregiaren **etnizismo** itsuegira bestela: [...]. Juan Luis Zabala

ETA VI.eko jendeok hausnarketa kritiko sakona egin genuen garai hartan: erakundeak zeraman dinamika armatua eztabaidatzeko eta gure pentsamolde politikoaren zenbait osagarritan zirauen **etnizismo** nazionalistaren zama gainetik kentzeko. Rafa Egiguren

---

etnizista *izond* etnizismoari dagokiona.

Arazoa da ez duela irizpide **etnizistak** darabiltzatenengandik bereizteko ausardiarik eta indarrik izan. Berria - Kultura

Nazionalitate bikoitzak tokia izango lukeen abertzaleen nazio baten arrisku **etnizista** desagertu da. Berria - Euskal Herria

PSE-EEk egitasmo «**etnizista**» dela nabarmendu du, eta PPk «ikastolen inposizioa» dela salatu. Berria - Euskal Herria

Estatu-Nazioa gorputz mistiko **etnizista** da, bat eta hautsezina. Joxe Azurmendi

Bere alderdiko buruzagi erradikal eta **etnizista** bihurta da berriz, eta ezinikusia eta gorrotoa dario. Immigranteekin oraintxe jokatzeko bere moduan ere Estatu-Nazio moderno hori **etnizista** da. Berria - Euskal Herria

Ez dut uste euskal nazionalismo guztia **etnizista** denik. Berria - Kultura

---

etnoantropologiko *izond* gizakia ikuspuntu sozial eta kulturaletik aztertzen duena.

Jasotako lekukotasun guztiek ohar filologiko-literarioak, **etnoantropologikoak**, sozio-historikoak eta kulturalak edukiko dituzte. Berria - Harian

---

etnogenealogia *iz* genealogia etnikoa.

Esanak esan, "Txomin Domingon Baratza", usario luzeko baratza iluna dugu beraz, eta mereziko luke **etnogenealogia** historiko ttiki bat osatzea, gure Dominga, Domingone, Domintxene, Domintxin, Txomin, eta ahaidekoen kriptologia argituz. Patziku Perurena

---

etnografia **1** *iz* etnien eta beren ezaugarrien azterketa.

Etnografiak eragin handia izan du euskal literaturan. Ana Urkiza

Katedrak bi arlo landu zituen: hizkuntza, alde batetik, eta etnologia eta **etnografia**, bestetik. Berria - Kultura

Izenak izana omen dakar, gorputzak itzala bezala ekarri ere gutxi gorabehera, baina ia hitz huts geratu zaizkigu horiek guztiak, besteak beste gure gauzez arduratu den aditu askok **etnografiaren**, hizkuntzalaritzaren edo antropologiaren interesa hartu dietelako kontu haiei, baina ez literarioa. Anjel Lertxundi

Ia **etnografiaren** pareko deskribapenak egiten ditu ezagutzen dituen gizarte maila horiez; *Gauza baten ametsa* honetan friuliera darabilen bezala, Erromako eleberrietan romanescoa erabiltzen du [...]. Josu Zabaleta

Etnografiaren nahiz arkeologiaren arloetan egin zuen bilketa lana ikaragarria da. Berria - Kultura

Etnografiaren eta antropologiaren hastapenetan, XIX. mendean, batez ere Amerikan, eboluzionistak hasi ziren beren ideiak nabaritasun enpirikoan funtsatzen. Askoren artean

Hizkuntzalaritza, arreta handiz bereizi behar da **etnografiatik** eta historiaurrekotik, horietan hizkuntzak dokumentu moduan soilik hartzen baitu parte. Isabel Arrigain

Ekimenak aurki biderkatu zituen bere eginahalak, eta 1984an **Etnografiako** Artziniegako Museoa zabaldu zuten. Berria - Kultura

Euskal Herriko **etnografiako** gai frango ditu hor hunkitzen: gasna, pazko-opila, txakolia, elurziloak, feriak, laxoa, musa, eguzki-lorea, makila, lauburua, trikitixa, atabaka, olak. Herria

Oinarrian eta funtsean, **etnografiakoak** baitira bi liburu horiek. Berria - Kultura

Kulturen arteko harremanen azterketak, **etnografiazko** azterketak, aipatu behar dira berriro hemen. Josu Zabaleta

Euskal **etnografiak** eman dit aukera Georgiako esamolde hori esplikatzeko. Berria - Kultura

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Idealismo horren oihartzuna oraindik entzuten da, hala **etnografia** postmodernoan nola antropologia hermeneutikoagoan. Askoren artean

Etnografia industriala da tutua, jotzen du eta ez da inorentzat, eta donostiarrek jadanik ez dakite zergatik jotzen duen tutuak eguerdian. Berria - Kultura

Arabar **etnografiaren** patriarkatzat edo argazkigintzan artistatzat hartu izanak Lopez de Gereñuren nortasunaren alderdi bat bakarrik argiztatuko luke. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Etnografia alorreko lanak. Berria - Kultura

Euskarazko **etnografia** bilduma sakona utzi zuen, 32 liburukitan argitaratua (Antropologiaren Euskal Bilduma). Berria - Kultura

Museoa antolatzeko eta sustatzeko ardura, aurrekoan bezala, Artea **Etnografia** Elkarteak du. Berria - Kultura

Antzinako ofizioen eta bizimoduaren irudikapen ikusgarria lortu du Artziniegako **Etnografia** museo berriak. Berria - Kultura

Hofrat Klementi -Antzinako Ekialdeko Bilduma Bereziaren Zuzendari, Artearen Historiako Museoan, eta baita **Etnografia** eta Antropologia Saileko behin-behineko buru ere-, ez dago aurkeztu beharrik. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **artziniegako etnografia** (3); **eta etnografia** (5); **etnografia eta** (6); **etnografia museoa** (3)

---

etnografiazale *izond* etnografiaren zalea dena.

Ordurako hasita nengoen euskal ikasketetan eta, inoiz **etnografiazalea** izan ez banaiz ere, laster antzeman nion kantu zaharra zela hura, Gernikako Marijesien tankerakoa, santa-eskeko koplen antza ere bazuen arren. Xabier Mendiguren Elizegi

---

etnografiko *izond* etnografiarena, etnografiari dagokiona.

XIX. mendea bukatu baino lehen, zenbait museo eta erakunde **etnografiko** sortu zen. E. B. Tylorrek Alemaniako tradizio **etnografikoa** Ingalaterrara eraman zuen, eta Franz Boasek Estatu Batuetara. Askoren artean

Mugimendu historiko hori, filosofikoa eta literarioa ez ezik, **etnografikoa** ere bazen. Askoren artean

Ondare **etnografikoa**: Euskal Herriko bizimodu tradizionala erakusten dute objektuak dira: upelgintzako piezak, zurgintzakoak, zur landuak, objektu erlijiosoak eta herri sinesmenen ingurukoak, etxeko objektuak, etxeko tresnak eta musika tresnak. Berria - Kultura

17.432 objektuk osatzen dute Aldundiaren ondare **etnografikoa**. Berria - Kultura

Balio handiko dokumentu **etnografiko** da eta aurten 25 urte beteko ditu dokumentalak. Berria - Kultura

Berako azterlan **etnografikoan** Julio Caro Barojak jaso zuen bezalaxe, beste euskal herri askotan ere, kanpoko arrotz jendea, koko jendea, jito jendea, jo izan duela "karakol jaletzat" euskaldunak. Patziku Perurena

Hiztegiak, dantzak, kantuak, jai egutegiak, datu **etnografikoak**. Berria - Kultura

Omenaldian Lopez de Gereñuk bere **lan etnografikoetan** eta historikoetan egindako argazkiak erakutsiko dituzte. Berria - Kultura

Azterketa **etnografiko** serioek (azken hamar-hogei urte hauetan, mende hasieran egiten zirenak bezain proiektiboak eta etnozentrikoak ez izaten saiatzen direnek) frogatua dute, gainera, gainerako guztien giltza bezala dela bigarren ezagutza hori. Josu Zabaleta

Altunaren arabera, ikerketa **etnografikoa** izan zen Barandiaranek egin zuen lan garrantzitsuena. Berria - Harian

Ehun urte zituela Ezkurra herrixkari buruzko ikerlan **etnografiko** bat prestatzen ari zen, inprimategira eramateko. Berria - Harian

Film **etnografikoen** indarraz jabetuta, Mendebaldeko Afrikako tribuen ohiturak filmatzeari ekin zion, etnografiaren eta fikzioaren arteko mugei erreparatu gabe. Berria - Kultura

Scipio Slapater-ek hogeita bi urterekin idatzi zuen *Il Carso* nobela erdi poetiko erdi **etnografikotik** hartuak dira hitz horiek. Anjel Lertxundi

Etniker taldeen lana gauzatu da Euskal Herriko Atlas **Etnografikoaren** bortz tomoekin. Herria

Hor eraikia dauka geroztik museo **etnografiko** oso interesgarri bat, hortik iragaiten diren guziek faltarik gabe bisitatu behar luketena. Herria

Oteiza Erakustoki **Etnografikoa** goiz eta aratsaldez idekiko da besta egunetan. Herria

Gizarte-sailean, horra, bitxikeria **etnografiko**-folkloriko gisan. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etnografiko bat (4); **etnografiko berria** (3); **lan etnografikoa** (3); **museo etnografiko** (6); **museo etnografiko berria** (3); **museo etnografikoan** (4); **ondare etnografikoa** (4)

---

etnografikoki *adlag* etnografiaren ikuspegitik.

Bitxia da, esate baterako, *La leyenda de Jaun de Alzate*-n, adibidez, euskal arima eta mitologia nola germaniartzen duen, Ortzi eta Thor berdinduz, bertute nietzschearrez adelatuz, etab., **etnografikoki** itxuragabekoa, baina erakusleiho polita Baroja-ren beraren arimarentzat (Mirande-k jarraituko dio). Joxe Azurmendi

---

etnografo *iz* etnografian aditua den pertsona.

Dutxa katarsi tipo bat da, **etnografoek** sinistu nahi ez badute ere. Unai Elorriaga

Euskaldunok aztergaitzat hartu gintuen lehen **etnografo** handiak berak, Francisque Michelek, alegia, honako hau idatzi zuen 1857an: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Herriko **etnografoarekin**, eta bertako harrespil eta trikuharrietan egiten ari ziren indusketen berri eman zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta etnologia (3); **etnologia eta** (3)

---

etnokratiko *izond* etniaren mende dagoena.

Izan ere, Greziakoa demokrazia zen, kapitalista baita ere, eta, Israelgoa bezala, kolonial eta **etnokratikoa**. Berria - Mundua

---

etnolinguistiko *izond* etniez eta hizkuntzez diharduena.

Euskal Herriko Atlas **Etnolinguistikoa**. Berria - Kultura

Azken finean, *bizindar* ***etnolinguistikoa*** kontzeptua erabiliz euskal hizkuntza komunitatearen osasuna neurtzen ari gara. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bizindar etnolinguistikoa (3); **bizindar etnolinguistikoaren** (3)

---

etnolinguistikoki *adlag* etnien eta hizkuntzen ikuspegititik.

Hor bertsolari helduen paperak garrantzi handia du, **etnolinguistikoki** aktiboak bai baitira. Berria - Kultura

---

etnologia *iz* antropologiaren adarra, etnien eta kulturen arteko erlazioa aztertzen duena.

Etnologia [...]: Gizonen tribuak aztergai dituen zientzia, hala nola lapurrak, ebasleak, iruzurgileak, ergelak, eroak, inozoak eta etnologoak. Xabier Olarra

Bere garaian zientzian, geografian, **etnologian**, medikuntzan, teologian edota filosofian biltzen ziren ezaguerak jasotzen jakin izan zuen. orainago psikoanalisiaren, hizkuntzalaritzaren, **etnologiaren** ikerketek subjektua deszentratu dute bere nahiaren legeekiko, bere hizkuntzaren formekiko, bere jardutearen arauekiko, bere diskurtso mitiko edo alegiazkoarekiko. Askoren artean

Birtuosismoa bai, ondo jotzea, baina sormena? Gertuago zegoen folkloretik, **etnologiatik**, atabismotik. Iñigo Aranbarri

Etnologia lanean ikasi dudana da, gehienetan ez dela erraza begiratzen duzuna ikustea. Joseba Sarrionandia

Hiri-**etnologia** aztertzeko leku aproposenetakoa zen Donostia, zalantzarik gabe. Fernando Morillo

---

etnologialari *(orobat **etnologilari**) iz* etnologoa.

Azterketa horiek askoz froga-indar gehiago dute, alde batetik, **etnologialariak** kanpotik iritsitako ikertzaile gisa duten egoeraren ohartun direnetik eta, bestetik, bideoaren edo Polaroidaren bitartez, irudiak ia bat-batean sortzeko baliabideak dituztenetik. Josu Zabaleta

Astronomilari eta **etnologilari** ospetsua zen Abadia jaunak, Karlos Setimoren alde lepo-hezurretaraino sartuta, eta Tirso Olazabalekin eskuz esku, 20.000 fusiletako gordelekutzat utzi zuen bere jauregia. Txillardegi

---

etnologiko *izond* etnologiarena, etnologiari dagokiona.

Antropologia naturalista edo biosoziala, biopsikikoa, kulturala edo soziala (**etnologikoa**), pedagogikoa, politologikoa (edo politikoa), ekonomikoa, teologikoa (edo erlijiosoa), filosofikoa edo, baita ere, estrukturala, hermeneutikoa, etab. Askoren artean

Pentsamendua beti txit historiko eta kondizionatutzat daukagunontzat, printzipioz ez du zaila ematen hipotesian onartzea, "erlatibismoa" (**etnologikoa**, adibidez), fase bat izan dela gure mendearen hasieran, osasungarria XVIII eta XIX. mende dogmatikoen aurka. Joxe Azurmendi

Irizpide **etnologikoek** hariztiaren alde jartzen gintuzten, literarioek lizardia lehenetsi behar genuela esaten ziguten. Anjel Lertxundi

Iruditzen zait, funtsenean berak arbuiatzen duena, ikerketa **etnologikoen** erabilera politikoa dela. Joxe Azurmendi

Zientifikoarentzat hori da objekziorik larriena: "nazioa" ez da ikerketa psiko edo **etnologikoaren** objektu bat. Joxe Azurmendi

Juzkutan motz omen nabil atzenaldera, eta kontu zahar **etnologikotan** luze. Patziku Perurena

Agian, fonetika eta gramatika historikoa iritsiko dira senidetasuna frogatzera, eta orduan material **etnologiko** -folkloriko honek guztiak inportantzia handia izango du. Berria - Kultura

---

etnologikoki *adlag* etnologiaren ikuspegitik.

Etnologikoki ere asko interesatu zaio euskal kultura bere-bere-kia, antzinenekoa. Joxe Azurmendi

---

etnologilari ik **etnologialari**.

---

etnologo *iz* etnologian espezialista den pertsona.

Aho batez aitortzen dute **etnologoek** unibertsala dela intzestuaren debekua. Juan Garzia

Gau batez, herri txiki bateko portuko tabernan sartu eta hor egon zen, izkina batean eserita, Guinness garagardo beltza edaten eta giroa **etnologo** begiekin aztertzen, turista garenean denok egin ohi dugun bezala. Martin Anso

Etnologia [...]: Gizonen tribuak aztergai dituen zientzia, hala nola lapurrak, ebasleak, iruzurgileak, ergelak, eroak, inozoak eta **etnologoak**. Xabier Olarra

Ekainaren 6 an,ortzirale aratsaldeko 5 etan, Laurier Turgeon kebekiar **etnologoak** eskainiko du Baionako Mattin Megadendan mintzaldi bat gai huntaz: "Basques et Américains dans l'estuaire du Saint-Laurent (Canada) au 16° siècle". Herria

Arkeologoak, antropologoak, **etnologoak** hor saiatzen dira gure memoria bertikalean aitzurka perforazio gero eta sakonagoak egiten, gure sustraien edo gure lehen hezurren bila. Berria - Kultura

Orain askoren ezpainetan hilik den hizkuntza honetan, hilerriak, harrietako eki ikurrak, etxaldeak, belaunaldiak ikertzen dituzten **etnologoak** "oparitzen" dizkigute ministerio eta kontseilu orokorretako arduradunek, herioa, erleena bezain ezti suerta dakigun menturaz. Itxaro Borda

Horra hor, herrien eta herritarren arima zedarritu, sailkatu eta interpretatu nahi izaten duten antropologo, **etnologo** eta bestelako giza entomologoentzako ikergaia: ezkontzen al zen inor etxekonekoekin? Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etnologoak eskainiko du** (3)

---

etnomusikologia *iz* herri musikaren azterketa.

Etnomusikologiako lana egiten ari zen, Euskal Herriko herrietan ibili zen, festen, erlijio kantuen melodien notak hartzen, Mendelssohn eta Schumannen erromantizismo alemanak ukitutako lengoaiarekin. Berria - Kultura

Sabin Bikandi txistulari, Bilbao musika eskolako zuzendari eta **etnomusikologian** adituari. Berria - Kultura

---

etnomusikologo *iz* etnomusikologian aditua.

Liburu honek euskal kantuan adituak diren batzuen gogoetak biltzen ditu, Denis Laborde **etnomusikologoaren** zuzendaritzapean. hizlari izanen dira Jacques Baudouin "Hèstas e pastoralas en Baish Ador" elkartearen presidenta eta Institutu Okzitanoaren president ordea; Patricia Heiniger, unibertsitalaria, Gaskoiniako Pastoralen ikertzailea eta Jean jacques Casteret Institutu Okzitanoan **etnomusikologo** dena. Herria

---

etnonimo *iz* talde etniko baten izena.

Orain, Euskal Herriaren manifestazio historikoaren egunak gertuago dauden honetan, izan ere agertzen ikus dezakegu, kasu honetan **etnonimo** -edo toponimo- ezagun bat baldin bada ere, gaindimentsionatua, arrazoin eta esanahi ez gehiegi argituriko lerradura miresgarri edo metamorfosi semantikoei esker. Pello Salaburu

---

etnotestu *iz* talde etniko baten ahozko testua.

Azkoitia-Azpeitietan entzuna nuelako, erru-ustea kolektibizatzeak dakarren lasaituaz irakurri diot J. Manuel Etxebarriari Gorbeiapeko **etnotestu** batean *Lehenago moro!* esakunea, "hori egin baino nahiago dut hilda egon" adieran. Iñigo Aranbarri

---

etnozentriko *iz* etnozentrismoari dagokiona; etnozentrismoa agertzen duena.

Inoiz aipatu dut Oteizaren estetika **etnozentrikoari** segitzen zaion ondorio totalitarioa: euskaldun orok aintzakotzat hartu beharra dauka Oteiza, baldin uko egin nahi ez badio euskal arimari. Anjel Lertxundi

Askotan salatu izan da pertzepzioari buruzko ikerketak **etnozentrikoak** direla, herrialde industrializatuetako laborategietan egindako esperimentuetan oinarrituta gizadi osoarentzat balio izatea nahi den ondorioak ateratzen dituztela. Josu Zabaleta

Azterketa etnografiko serioek (azken hamar-hogei urte hauetan, mende hasieran egiten zirenak bezain proiektiboak eta **etnozentrikoak** ez izaten saiatzen direnek) frogatua dute, gainera, gainerako guztien giltza bezala dela bigarren ezagutza hori. Josu Zabaleta

Gure segurtasunaren paranoia indartzen duten estereotipo **etnozentriko** edo klasistekin bat egiten duena. Berria - Euskal Herria

Sandiarekin ere sartzen da -Sandia mundu zabalean ospe handia zuen beste idazle bat zen-, banidoso **etnozentrikoa** deituz, konturatu gabe berak bekatu horixe egiten duela, uste duelarik geu baizik ezin garela munduko nagusiak izan. Jon Alonso

---

etnozentrismo *iz* norberaren etnia edo kultura eredugarritzat hartzeko joera.

Egia da halaber mendebaldeko kulturaren eraso bortitzaren aurrean herrien identitateen aldeko asmo oneko ikuspegi askok eta askok ere, sakon-sakonean, nolabaiteko **etnozentrismoa** eta paternalismoa dutela oinarri. Iñaki Heras

Mendebaldeko **etnozentrismoa** kritikatzen duten zenbaiten artean. Iñaki Heras

Ulertu dut, bai, berba horien zentzua, nire arrazoibidearen **etnozentrismoaz** ohartzeaz batera. Jon Arretxe

Gai honen inguruko bilakaera historikoa eta filologikoa zuhur uztartuz, **etnozentrismo** motzera mugatu beharrean, guregan eragin nabaria izan duten gizaldi arrotzetara luzatuko bagenu jakintzaren argia, gauza asko argituko genukeela uste dut euskaldunok. Patziku Perurena

Orduko, eztabaida bat baino gehiago izana genuen etxean, nire **"etnozentrismo** familiarraz" eta "aurreiritzi zikinez". Aingeru Epaltza

Etnozentrismoaren behar-beharrezko zuzenketa bat izan zen erlatibismoa gure mendearen lehen erdian; baina, batzuen ustez, "zuzenketaren zuzenketa da orain premiatsuki beharra dagoena". Joxe Azurmendi

Bera, humanista, gogoa desberdintasunei zabalik zeukan gizona, horra bete-betean harrapatua **etnozentrismozko**, mendebalde-zilborkeriazko... eta auskalo zer besteko delituan. Jon Muñoz

---

etnozentrista *izlag* etnozentrismoari dagokiona; etnozentrismoa dakarrena ondorioz.

Jarrera **etnozentristak** nagusi dira mendebaldeko gure gizartean, dudarik gabe. Iñaki Heras

Ikuspuntu **etnozentrista** baztertu eta etorkinen estigmatizazioa baztertu behar dela. Berria - Euskal Herria

---

etnozidio *iz* talde etniko bat suntsitzea.

Liburuan gai nagusi bat dagoela azpimarratu zuen Kike Amonarrizek: Nazio-estatuaren izaera eta berak eragindako **etnozidioa**. Berria - Euskal Herria

---

etoi *iz/izond* traidorea, saldukeria egiten duena.

Etoiak, infiltratuak, fedea galdutakoak eta zintzoak. Edorta Jimenez

Amaiurren Mirandako kondeari eta Leringo **etoiaren** semeari, Orreagan Errolani eta Zelatunen erromatarrei aurre egin zietenak. harrespil eta trikuharrien egileenganaino heldu arte. Juan Luis Zabala

Joan ziren agintariak herrira, dardaraz joan ere, jaitsi ziren hondartzara eta esan zioten Bizargorri **etoiari** bazela herrian haren aurka borrokatuko zen gizonik. Felipe Juaristi

Justizia eske etorri naiz, traidore **etoi** horren burua eskatzera. Xabier Olarra

---

etoikeria *iz* etoiaren ekintza gaitzesgarria.

Etoikeria, eta Fidel Castro bera akabatzeko ahaleginak. Edorta Jimenez

---

etoiki *adlag* etoien eran.

Arestiren bihotzak negar egiten du // Lumunbaren hobian hau zenean zendu // Negro herrian dira zuzenak ostendu // **Etxe** zuri batera etoiki aldendu. Iban Zaldua

---

etologo *iz* zerbaiten, eskuarki eritasun baten, kausetan aditua.

Ez dakit ba ote den guregan Konrad Lorenz **etologoak** hain ederki esplikatzen duen inpronta delakoaren antzekorik, eta gu ere betiko markatuta gera gaitezkeen inguruko zernahirekin, animaliei jaio ondorengo orduetan gauza mugikorrekin gertatzen zaien bezala. Bernardo Atxaga

---

etoposido *iz* kimioterapiako sendagaia, eskuarki birikako minbizia tratatzeko erabiltzen dena.

Linfohitiozitosi hemofagozitoa deritzon gaitza tratatzeko **etoposidoa** kimioterapiarako gaia erabiltzen da. Berria - Gaiak

---

etorberri *iz* etorri berria.

Etorberriak nire aldeko gibel atea ireki zuen. Aingeru Epaltza

Hori azken **etorberriak** ere bazakik. Aingeru Epaltza

---

etorbide *(ETCn **6.435** agerraldi)* **1** *iz* hiri barneko bide zabala. ik **hiribide**.

Etorbidea zeharkatu eta aldirietarantz jo zuen. Lopez de Arana

Rekexok **etorbidea** gurutzatu eta, etxerako bidean, Sorginak kafetegitik pasatu nahi izan zuen. Joxemari Iturralde

Arlote bakarti eta etxe gabe underground-ak, beren erosketa-orgatxoei **etorbideetan** behera bultzatuz eta zakarretan botilen bila azterka aritzen direnak. Oskar Arana

Pilotaleku berri bat eraikia izan da, Manilako Luneta Park zabalaren ondoan, Taft avenue **etorbidearen** bazterrean. Ramuntxo Etxeberri

Komunikazioak lehendakariari zuzendu, egoitzara edo Galvani **etorbideko** 154ra. Monika Etxebarria

«Ertzainei eta udaltzainei» ihesi korrikaldi saio ederrak ere egin zituzten; esaterako, Askatasunaren **etorbidea** eta Bulebarreko kaleak korrika pasatu zituzten. Berria - Euskal Herria

Nafarroa **etorbideko** 20. ezkaratzera iritsi eta bosgarren pisurako igogailurantz zuzendu zituen bere pausoak. Harkaitz Cano

Buenos Airesko Santa Fe **etorbideko** 846 zenbakian erosi du eraikina, Argentinako Kanpo Harremanetarako Ministerioaren egoitzatik 150 metrora. Berria - Euskal Herria

Bidaiaren bi herenetan, bide lasterretik joan ginen; bide horretan honako hiri-bide hauek erabili genituen: Flatbush **Etorbidea**, BQE, Grand Central Parkway eta 678 Errepidea. Oskar Arana

Dongek bere gizonak eraman zituen itsasoaren aitzineko Roxas Boulevard **etorbideko** putetxe dantzaleku batera. Laugarren Kalearen eta B **Etorbidearen** arteko kantoian. Ramuntxo Etxeberri

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Orain, **etorbide** berri zabal bat besterik ez neukan neure aurrean; Frantzian bezalaxe gure Donostian ere... "bulebarra" bataiatua. Kulunka zihoan **etorbide** zabal batean gora, hauts zurrunbilo baten erdian. Txillardegi

Etorbide dotore batean zegoen kokaturik txalet handia, alde batera zein bestera halako beste asko zituela, gehienbat platanondo, makal, magnolio eta palmondoz babesturik. Joxemari Iturralde

Gran Viatik gertu, **etorbide** paralelo batean aurkitu zuen Raukinak autoa uzteko lekua. Joxemari Iturralde

Trafikoa ikaragarria zen Manilako hiri erdiko **etorbide** zaratatsuetan. Ramuntxo Etxeberri

Ostera bat egitera joan nintzen burua egurastera eta Hamaikagarren **Etorbideko** bazterbidean ikusi nuen nola merkantzi tren batek esnezalearen gurdia harrapatu zuen. Lopez de Arana

Ile ostera hazi berria mozten nuen Zazpigarren **Etorbideko** Park Slope bizartegian, bideo-filmak hartzen nituen errentan Movie Heaven izeneko leku batean, eta Brightman's Attic-en sartzen nintzen sarri. Oskar Arana

Bederatzigarren **Etorbidean** tren bat goialdetik igaro zen, ziztuan, erdialderantz, tren-makina txiki berde bat aurrean zeukala. Hirugarren **Etorbideko** kale-kantoian taberna

bateko ate erdi saretadunak aurrera-atzera higitzen ari ziren. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
a etorbidea (3); **a etorbidean** (3); **avenue etorbidea** (3); **avenue etorbidean** (3); **baiona etorbidetik** (3); **bosgarren etorbidea** (10); **bosgarren etorbidean** (6); **bosgarren etorbidearen** (3); **bosgarren etorbidearen eta** (3); **bosgarren etorbideko** (3); **darrigrand etorbidea** (3); **eta etorbidean** (3); **etorbide luze** (3); **etorbide zabal** (4); **etorbide zabalak** (3); **etorbidea eta** (5); **etorbidea ez** (3); **etorbidea hartu** (4); **etorbidea hartu zuen** (3); **etorbidea zeharkatu** (4); **etorbidea zeharkatu eta** (3); **etorbidea zeharkatzen** (3); **etorbidean barrena** (3); **etorbidean behera** (6); **etorbidean dagoen** (3); **etorbidean eta** (4); **etorbidean gora** (5); **etorbidean zehar** (8); **etorbidearen eta** (8); **etorbidera iritsi** (3); **hamaikagarren etorbideko** (3); **montevideo etorbidean** (5); **montevideo etorbideko** (3); **nafarroa etorbideko** (7); **zazpigarren etorbidean** (8); **zazpigarren etorbideko** (8)

---

etorburu *iz* etorkia, jatorria.

Zer jarduera eta zer oinarri biltzen duen transmisioen, berreskuratzeen, ahanzturen eta errepikapenen jokoak; nola heda dezakeen **etorburuak** bere erreinua berarengandik urrun eta sekula heltzen ez den amaieraraino. Xabier Arregi

Kulturak, topo egitetik eta trukaketatik hazten direla iritzi baitiote, Maiatzeko Antzerkialdiko antolatzaileek **etorburu** anitzeko antzerki jarduleak eta obrak hurbilarazi dituzte Maulera datozen egunotan. Berria - Kultura

Etorburu aniztasunaren eta kultura irekitasunaren izenean euskara eta euskal kultura ez bailirateke zokoratuta egon behar, antolatzaileek euskarazko sei ikusgarri jarri dituzte egitarauan. Berria - Kultura

---

etorkera ik **etorrera**.

---

etorki *(ETCn **6.435** agerraldi)* **1** *iz* jatorria.

Gurasoak, izaitez, laborariak zituen, eta ez zen bere **etorkia** ezkutatzen ibiltzen. Joan Mari Irigoien

Migelek, nik ez bezala, txiki-txikitatik jakin zuen zein zen bere **etorkia** eta zein bere etorkizuna. Aingeru Epaltza

Gehienen **etorkia** Atturriko bi aldeetako herriak ziren, baxenabartarrak eta Lapurdi hurbileko euskaldunak, baita gaskoiak ere ugari. Aingeru Epaltza

Aleman letrak ikasten abiatu berri nintzen, eta izugarri gustatzen zitzaidan *Urstoff* hitza [...] eta haren osaketan ageri zen Ur aurrizkia, zeinak, hain zuzen, antzinako **etorkia** adierazten baitu, espazioan eta denboran urrun ere urrun dagoenaren tasuna. Juan Garzia

Ez daukate beste **etorkirik** ez egonlekurik gure kontzientzia hauskor, erlatibo hauxe baino. Joxe Azurmendi

Big Bangaz eta unibertsoaren **etorkiaz** jartzen naiz pentsatzen, eta zergatik gauden hemen: mugatua da, ala etengabe handituz doa? Xabier Olarra

Hainbat teoria zebilen Europako herri edo arrazen **etorkiaz**. Joxe Azurmendi

Afektuen izaeraz eta **etorkiaz**. Markos Zapiain

Zeren uste baitzuen, halaber, ezen, jatorrizko eta **etorkiko** odol garbitasunik ezean, nola baitzen bere kasua, arbasoak Nafarroako gerla haietan galtzaileetarik izan zirelako, dirua egin eta diruz eros zezakeela faltan zuena. Joan Mari Irigoien

Zeren eta nafar **etorkikoa** izanez, Felipe Errege Jaunaren menpe bainaiz eta Portugaleko Erregeren meneko ere. Piarres Xarriton

Euskaldunak gara nafarrok, euskaldunak odolez, euskaldunak **etorkiz**, euskaldunak mintzairaz, nortasunez eta ohituraz. Piarres Xarriton

Diogenes eta beste filosofo arrotzak, erraten zutenak haizea edo airea dela arima, Isidoro dohatsuak salatzen duen bezala **Etorkien** edo Etimologien 2. liburuan. Piarres Xarriton

2 (izenondoekin)

Etorki txukun eta garbi bat. Joan Mari Irigoien

Etorki ilun eta apaleko gizona zen gure protagonista. Jose Morales

Tabureau andrearen familia **etorki** onekoa zen; andrea ere, okina izan arren, heziketa ederra jasoa zen. Karlos Zabala

Biak **etorki** berekoak dira, horretan ados naiz; bata ordea fortunarik gabea da, eta bertzearena hain da munta handikoa, non, **etorki** gorenekoa izan gabe ere, aski litzatekeen hura noranahi helarazteko. Jon Muñoz

Tabako gorri amerikarra, auskalo nondik ekarritako blue-jeanak nahiz **etorki** zalantzakorreko motozikletak, beti izaten zuen esku artean dirutzen ahal zen zerbait. Aingeru Epaltza

Amikuze osoan ez da Garrüzeko gazteluzainari bere **etorki** apala oroitarazita burua lepo gainean atxikiko duen amaren semerik. Aingeru Epaltza

Hain **etorki** handiko damekiko joan-etorriak arrotz zitzaizkion arren, ez zuen bere lana hain gaizki eginen, Joana bera abiatu baitzen Katalinarendako laudorioetan. Aingeru Epaltza

3 (hitz elkartuetan)

Biografia luzea, haren **errege** etorkia aipatzen duena eta Orreagako priore izendapena zehazten. Piarres Xarriton

4 (adizlagun gisa)

Makurrena: ongi eza emendatuz **etorki**, hondarrean guztiz abaildurik natza ohatzean. Jose Angel Irigaray

Juana bazihoala, etxe txuritik **etorki**, Yago beso-hautsia haien parean gelditu zen, imintzio garratz bat eta irri gaixto batekin bankuari begira. Pablo Sastre

Ez zetozen honekin batera fraideak, nahiz eta bide berean **etorki**. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta etorki (3); **izaeraz eta etorkiaz** (4)

---

etorkin **1** *iz* lan arazoengatik edo, berea ez den herri batera bizitzera datorren pertsona.

Kanpotik jin horiek, **etorkinak** orai erraiten den bezala, gomitatuak dira elkarte horietan parte hartzerat, bakoitxak hautatuz bere gostuko saila. Herria

233 **etorkin** utzi ditu Espainiako Poliziak Frantziaren esku, Lapurdin. Iñigo Aranbarri

75 **etorkin** salbatu dituzte nora ezean zebiltzan bi ontzitatik. Berria - Mundua

Hego Euskal Herrian ia 20.000 **etorkin** bizi dira paperik gabe eta beste 60.000 paperekin. Berria - Euskal Herria

Hamabi milioi **etorkin** daude Estatu Batuetan paperik gabe. Berria - Mundua

Jangai den piztia edo hegaztia ehizatzen badu israeldarrak nahiz **etorkinak**, odolustu egingo du eta odola lurrez estaliko. Elizen arteko biblia

Israeldar guztiak, **etorkin** nahiz bertako. Elizen arteko biblia

Ez eman tratu txarrik **etorkin**, umezurtz eta alargunei. Elizen arteko biblia

Hirian bazen mugimendu, non-nahitik etorri jendeen nahasmendu etengabea: saltzaile, marinel, jakintsu, aberats, pobre, **etorkin**, atzerritar. Elena Touyarou

Horietako bat Thailandiako **etorkina** da, eta bakartuta dute. Berria - Gaiak

Etorkinak diren emakumeak «are egoera latzagoan» daude. Berria - Ekonomia

Uste zen **etorkin** guztiak, edo Europatiko **etorkin** guztiak, behintzat, berehala bihurtuko zirela amerikar abertzale "porrokatu". Iñaki Mendiguren

Ez mesprezatu edomdarrak, anaiak baitituzue; ezta egiptoarrak ere, **etorkin** izan baitzineten haien lurraldean. Elizen arteko biblia

Zure aurrean arrotz eta **etorkin** besterik ez gara, gure arbasoak izan ziren bezala. Elizen arteko biblia

Marokoko Armadak 800 **etorkin** inguru utzi ditu basamortuan, nora ezean, tartean zaurituak eta adingabeak. Berria - Harian

Justizia egiten die umezurtz eta alargunari, eta maite du **etorkina**, jatekoa eta janztekoa ematen dizkiolarik. Elizen arteko biblia

Ez egin inolako lanik egun horretan, ez zuk, ez zure seme-alabek, ez zure morroi-mirabeek, ez zure idi, asto zein beste abereek, ezta zure hirietan bizi den **etorkinak** ere. Elizen arteko biblia

Urrian egindako epaiketan **etorkinen** trafikoan parte hartu izana onartu zuen. Berria - Kultura

Bizkaiko **etorkinen** %80k lana duela esan zuen baina, aldi berean, baldintzarik txarrenak dituztela gogorarazi zuen. Berria - Ekonomia

Bizkaian bizi diren mundu zabaleko **etorkinen** hamabi taldek jokatu dute xapelgo hori. Herria

Etorkinen integrazioaren eredu ere izan da (aurten Frantzian izandako protestek eredu hori behera bota zuten arte), eta azken urteetan Afrikan eta Frantzian gazte askoren idolo bilakatu da. Berria - Kirola

2 (izenondo gisa)

Geroz eta haur **etorkin** gehiago daude, eta ikastetxeek urte gutxian egoera berrira moldatu behar izan dute. Berria - Harian

1.498 ikasle **etorkin** zeuden. Berria - Euskal Herria

Kolore askotako plano konplikatuak marrazten zituen, ingelesez ez zekiten langile **etorkinek** egin behar zutena uler zezaten. Harkaitz Cano

Genero indarkeriaren kontra egiteko eta langile **etorkinen** eskubideak babesteko. Berria - Gaiak

Aipatu duzun berri horren harira deitzen dizuet, alegia, uretara botatako emakume **etorkinarena**. Paddy Rekalde

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Etorkin adingabeei bi etxebizitza eskaintzea aztertzen ari da Bizkaiko Diputazioa. AEBek ateak ireki dizkiete gogor lan egin eta seme-alabak eduki nahi dituzten mundu osoko milaka **etorkin** gazteei. Berria - Euskal Herria

Errefuxiatuak direla dioten **etorkin** ekonomikoen arazoa eragotzi beharra dago. Berria - Mundua

Kontua ez da hemen bukatzen; zeren eta bere garaian **etorkin** erretiratuen seme-alabek ezkondu eta beren seme-alabak izaten baitzituzten; eta hirugarren belaunaldiaren ordezkari hauentzat ingelesa zen etxeko nahiz eskolako hizkuntza. Iñaki Mendiguren

Sodomarrek ez zieten abegirik egin bisitari ezezagunei, baina egiptoarrek esklabo bihurtu zituzten **etorkin** ongileak. Elizen arteko biblia

Etorkin magrebtarren aurkako erasoak. Berria - Mundua

Norvegiako **etorkin** vikingoek oso ongi erantzun zioten Islandiako erronka latzari, baina huts egin zuten are latzagoa zen Groenlandiakoaren aurrean. Iñaki Mendiguren

Agian horrelakoetan, beso gihartsudun **etorkin** poloniar, italiar eta afrikar saldoek oihu egingo zuten norberak bere hizkuntzan, elkar ulertu gabe, dezepzioak eta amorruak jota. Harkaitz Cano

Eskualde horrexetatik dator gehienbat diaspora, eta txinatar **etorkinek** bertan egin dituzten inbertsioak gehiago dira estatubatuar, japoniar eta europar enpresen inbertsioak, guztira hartuta, baino. Koro Navarro

Antza, italiar **etorkinak** malenkoniatsu sentitzen ziren hiri-hirian, hainbeste porlan eta asfalto artean. Patxi Zubizarreta

Atxilotutako **etorkinak** komisaldegira eramanak izan dira Sea Eagleko kapitainarekin eta besteren batekin batera. Paddy Rekalde

Legez lanpoko **etorkin** bat atxilotzean, Atzerritarren Legea jartzen da martxan. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hauetako arduradunek behin eta berriz ozen salatu dute zer egoera ikaragarrietan bizitzera uzten dituzten hainbat eta hainbat **etorkin** familia. Berria - Harian

Etorkin bikote bat eta besoetako haurra atxilotu dituzte Hendaian. Berria - Euskal Herria

Lehenik eskolak, **etorkin** talde bat antolatzea lortu huelako poza, gero asanbladak, katedraleko gose greba, manifestazio andana. Javi Cillero

Gutxi batzuk besterik ez ziren, **etorkin** -taldetxo bat besterik ez.

Etorkin olde handienak Afrika iparraldetik zetozen. Berria - Mundua

EBra «**etorkin** uholdea» heltzea, gizartea zahartzea, garapen ekonomikoa gelditzea, kultura politiko desberdinen artean politika bateratu bat egitea, botere egitura aldakorrak egotea... zalantza sortzen duten faktoreak dira Kolarzskaren ustez. Berria - Euskal Herria

Etorkin kopuruak apalarazi nahi dituen legea gogortu bada ere, dagoeneko argi erran genezake ez duela egoera zuzenduko ez eta etorkinei hona jiteko gogoa kenduko ere. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta lege egitasmoan **etorkin** kuotak jartzea ez aipatu, mintzaldian horren beharra dagoela nabarmendu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Ez da oraindik Penintsulara heldu 2005-2012 garaiko Afrikako **etorkin** -masa handia, baina, ezbairik gabe, 1990ekoaz geroztik are nabariagoa egiten ari zen haien presentzia. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste etorkin (6); **bi etorkin** (5); **bizi diren etorkin** (5); **da etorkin** (4); **den etorkin** (4); **dira etorkin** (6); **diren etorkin** (12); **diren etorkin gehienek** (3); **duten etorkin** (6); **ehunka etorkin** (5); **ere etorkin** (6); **ere etorkin izan** (3); **eta etorkin** (20); **eta etorkin gehiago** (4); **etorkin asko** (19); **etorkin askok** (5); **etorkin askoren** (3); **etorkin atxilotu** (26); **etorkin atxilotu ditu** (3); **etorkin atxilotu dituzte** (9); **etorkin atxilotu zituen** (8); **etorkin atxilotu zituzten** (5); **etorkin atzeman** (5); **etorkin baino** (7); **etorkin baino gehiago** (6); **etorkin bat** (17); **etorkin batek** (8); **etorkin baten** (9); **etorkin bati** (3); **etorkin batzuek** (3); **etorkin berriak** (5); **etorkin berriek** (3); **etorkin bikote** (4); **etorkin bikote bat** (4); **etorkin bizi** (7); **etorkin bizi dira** (4); **etorkin daude** (5); **etorkin eta** (7); **etorkin familia** (3); **etorkin gehiago** (14); **etorkin gehiegi** (3); **etorkin gehien** (3); **etorkin gehienak** (12); **etorkin gehienek** (5); **etorkin gisa** (4); **etorkin guztiak** (14); **etorkin guztiak zaku** (4); **etorkin guztien** (5); **etorkin guztien egoera** (3); **etorkin haiei** (3); **etorkin haiek** (3); **etorkin hil** (16); **etorkin hil dira** (4); **etorkin hil ziren** (7); **etorkin horiek** (5); **etorkin horien** (3); **etorkin inguru** (6); **etorkin iritsi** (17); **etorkin iritsi dira** (8); **etorkin iritsi ziren** (7); **etorkin izan** (5); **etorkin izan baitzineten** (4); **etorkin izango** (3); **etorkin kopururik** (3); **etorkin kopururik handiena** (3); **etorkin nahiz** (5); **etorkin talde** (5); **etorkin talde bat** (3); **etorkin ugari** (6); **etorkin uholde** (3); **etorkin uholde bat** (3); **etorkin zeramatzan** (4); **etorkin zeuden** (8); **gabeko etorkin** (3); **gero eta etorkin** (5); **hainbat etorkin** (5); **hiru etorkin** (5); **ikasle etorkin** (3); **kanpoko etorkin** (5); **legez kanpoko etorkin** (4); **milaka etorkin** (4); **milioi etorkin** (8); **zazpi etorkin** (4); **zenbat etorkin** (4); **ziren etorkin** (4); **zuten etorkin** (4)

atxilotutako etorkinak (3); **bizi den etorkina** (6); **bizi den etorkinak** (7); **bizi diren etorkinak** (5); **da etorkina** (3); **da etorkinak** (4); **dauden etorkinak** (5); **dela etorkinak** (3); **den etorkina** (9); **den etorkina izan** (5); **den etorkinak** (8); **den etorkinak ere** (5); **dira etorkinak** (15); **diren etorkinak** (17); **ditu etorkinak** (4); **dituen etorkinak** (3); **dituzte etorkinak** (4); **dituzten etorkinak** (7); **duen etorkinak** (3); **duten etorkinak** (6); **edo etorkinak** (3); **emakume etorkinak** (5); **emakumeak eta etorkinak** (3); **eta etorkina** (4); **eta etorkinak** (31); **etorkina bere** (3); **etorkina da** (4); **etorkina eta** (3); **etorkina ez** (4); **etorkina izan** (7); **etorkinak ameriketan** (4); **etorkinak berak** (3); **etorkinak bere** (3); **etorkinak dira** (22); **etorkinak diren** (4); **etorkinak edo** (3); **etorkinak egoera** (3); **etorkinak ere** (11); **etorkinak eskolatzeko** (6); **etorkinak eta** (16); **etorkinak euskal** (3); **etorkinak euskalduntzeko** (3); **etorkinak ez** (10); **etorkinak gero** (3); **etorkinak gero eta** (3); **etorkinak gure** (4); **etorkinak hartzeko** (3); **etorkinak hautatzeko** (4); **etorkinak izan** (7); **etorkinak kanporatu** (5); **etorkinak kanporatzeko** (6); **etorkinak kanporatzen** (3); **etorkinak laguntzen** (3); **etorkinak lanean** (3); **etorkinak legeztatzeko** (3); **etorkinak soilik** (3); **etorkinak ziren** (8); **euskaldun etorkinak** (4); **euskaldun etorkinak ameriketan** (4); **euskara eta etorkinak** (3); **ez dira etorkinak** (3); **gabeko etorkinak** (6); **gehienak etorkinak** (3); **gobernuak etorkinak** (3); **ikasle etorkinak** (7); **kanpoko etorkinak** (13); **langile etorkinak** (4); **legez kanpoko etorkinak** (10); **nahi duen etorkinak** (3); **paperik gabeko etorkinak** (6); **ziren etorkinak** (7)

ari diren etorkinen (3); **bereziki etorkinei** (3); **bizi diren etorkinei** (6); **bizi diren etorkinek** (3); **bizi diren etorkinen** (9); **bizkaiko etorkinen** (3); **da etorkinek** (4); **da etorkinen** (7); **da etorkinentzat** (3); **dauden etorkinek** (4); **diete etorkinei** (4); **dira etorkinen** (5); **diren etorkinei** (9); **diren etorkinek** (7); **diren etorkinen** (17); **ditu etorkinen** (3); **dituzte etorkinek** (4); **dituzten etorkinek** (3); **du etorkinei** (3); **du etorkinen** (5); **dute etorkinek** (7); **duten etorkinei** (4); **duten etorkinek** (8); **emakume etorkinek** (3); **emakume etorkinen** (7); **eta etorkinei** (7); **eta etorkinek** (8); **eta etorkinekin** (5); **eta etorkinen** (38); **eta etorkinen aldeko** (3); **eta etorkinen arteko** (3); **eta etorkinen eskubideak** (3); **eta etorkinentzat** (4); **etorkinei buruz** (4); **etorkinei buruzko** (7); **etorkinei elkartasuna** (3); **etorkinei elkartasuna adierazi** (3); **etorkinei eta** (9); **etorkinei laguntza** (6); **etorkinei laguntza ematen** (3); **etorkinei laguntzen** (3); **etorkinei zuzendutako** (3); **etorkinek beren** (3); **etorkinek bereziki** (3); **etorkinek bertan** (3); **etorkinek dituzten** (4); **etorkinek ere** (10); **etorkinek eta** (4); **etorkinek eurek** (4); **etorkinek ez** (7); **etorkinek ez zuten** (3); **etorkinek gure** (3); **etorkinek hemen** (3); **etorkinek hezkuntza** (3); **etorkinekin batera** (4); **etorkinekin lan** (10); **etorkinekin lan egiten** (10); **etorkinen agiriak** (3); **etorkinen alde** (5); **etorkinen aldeko** (15); **etorkinen arazoa** (3); **etorkinen arazoari** (4); **etorkinen artean** (16); **etorkinen arteko** (3); **etorkinen aurka** (6); **etorkinen aurkako** (7); **etorkinen bizi** (3); **etorkinen egoera** (29); **etorkinen egoera arautzeko** (3); **etorkinen egoera legeztatzeko** (4); **etorkinen elkartea** (3); **etorkinen elkarteak** (3); **etorkinen elkarteek** (3); **etorkinen elkarteen** (6); **etorkinen eragina** (3); **etorkinen erroldatzea** (3); **etorkinen eskaerak** (3); **etorkinen eskolatzea** (4); **etorkinen eskubide** (3); **etorkinen eskubideak** (16); **etorkinen eskubideak aldarrikatzeko** (3); **etorkinen eskubideen** (5); **etorkinen eskubideen alde** (4); **etorkinen eta** (8); **etorkinen etorrera** (5); **etorkinen giza** (4); **etorkinen hamar** (3); **etorkinen hamar seme** (3); **etorkinen harrera** (4); **etorkinen hizkuntza** (4); **etorkinen integrazio** (4); **etorkinen integrazioa** (8); **etorkinen integrazioaren** (3); **etorkinen jatorrizko** (3); **etorkinen kasuan** (5); **etorkinen kontrako** (8); **etorkinen kontrola** (3); **etorkinen kopurua** (11); **etorkinen lan** (6); **etorkinen lan baldintzak** (3); **etorkinen oinarrizko** (3); **etorkinen oinarrizko eskubideak** (3); **etorkinen seme** (20); **etorkinen seme alabak** (7); **etorkinen seme alabek** (4); **etorkinen seme alaben** (6); **etorritako etorkinen** (3); **gabeko etorkinei** (3); **gabeko etorkinen** (7); **gora etorkinek** (3); **hezkuntza etorkinekin** (3); **ikasle etorkinek** (6); **ikasle etorkinen** (20); **immigrazioa etorkinen** (7); **kanpoko etorkinei** (4); **kanpoko etorkinek** (5); **kanpoko etorkinen** (4); **langile etorkinen** (10); **langile etorkinen elkarteak** (3); **legez kanpoko etorkinei** (4); **marokoko langile etorkinen** (3); **milaka etorkinen** (3); **nafarroako etorkinen** (3); **nafarroako etorkinen elkarteen** (3); **paperik gabeko etorkinei** (3); **paperik gabeko etorkinen** (6); **ziren etorkinen** (7); **zuen etorkinen** (5); **zuten etorkinek** (4)

etorkizun *(ETCn **69.511** agerraldi)* **1** *iz* etortzeko den denbora. ik **gero 1**.

Lastima, ordea, **etorkizunak** -orainak, alegia- Blade Runner filmeko euri artean galtzen ziren erreplikantearen malko lirikoekin baino, Independence Day eta gisa bereko film apokaliptiko eta profetikoekin zerikusi handiagoa izatea. Iñaki Heras

Iragana atzoko **Etorkizuna** bada ere, **Etorkizuna**, biharko Iragana da. Xabier Olarra

Ez duzu goretsi zure bizia eta **etorkizuna** bere esku dituen Jainkoa, diren guztiak egin dituena. Elizen arteko biblia

Burdina duk hemen **etorkizuna**, ez lurra! Joan Mari Irigoien

Mantxuria, Mongolia eta Sinkiang-en **etorkizuna**, azken batean, askoz garrantzi handiagokoa zen Txinarentzat eta Errusiarentzat, Indotxina, Hong Kong eta Formosaren **etorkizuna** baino. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Zibilizazioaren **etorkizuna** garai hartan ez zela inola ere 1929. urteko lehen hilabeteetan [...] zena baino ilunagoa. Iñaki Mendiguren

Gure egunotan ez da, ez, batere ziurra hizkuntza txikien **etorkizuna**. Koldo Zuazo

Neure artean diot: galdua da nire **etorkizuna**, Jaunak ematen zidan itxaropena. Elizen arteko biblia

Unibertsitatean, edo unibertsitatearekin batera gehienetan, garatzen diren sormenek, berrikuntzek eta jakiteek baldintzatuko dute gure **etorkizuna** hurrengo urteetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gizadiaren eta munduaren **etorkizuna** dago jokoan. Askoren artean

Ez da mintzatuko bere kabuz, baizik eta nik jakinaraziko diodana adierazi eta **etorkizuna** iragarriko dizue. Elizen arteko biblia

Iloba etxerat eramanik, berarekin hazi, hezi eta bere ofizioa irakatsi zion Sagrariok, taroteko kartetan edo eskuko marretan **etorkizuna** asmatzen trebatzen zuela. Joan Mari Irigoien

Murrizpen etikoak: munduko zenbait tokitan hazkunde ekonomikoari uko egitea, Planetako biztanle guztien beharrak ase ahal izateko eta ondotik etorriko direnen **etorkizuna** ez hipotekatzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Etorkizunaren historia zehatz-zehatza, goiaingeruen autobiografiak. Juan Garzia

Liburutegiaren katalogo doia,Ordenaren orainaz eta **etorkizunaz** Zelanoren ikuspegia ez da argia: sinetsia dago Ordenaren misio garrantzitsuaz kristau-bizitza gizartean berritzeko. Askoren artean

Prozesuaren abantailak azpimarratzen dituztenen aburuz, **etorkizunean** produktibitate tasak eta bizitza kalitate estandarrak nonahi areagotuko ditu globalizazioak. Iñaki Heras

Ez du iraganeko edo **etorkizuneko** gauza bat bezala irudikatuko, non ez dion iraganaldiko edo **etorkizuneko** irudiari lotzen haren irudia. Piarres Xarriton

Desenkusatu [...]: **Etorkizuneko** irain baterako oinarria ezarri. Xabier Olarra

Egitura eta prozedura malguak erabili beharko genituzke, gaurko eta **etorkizuneko** beharrei arin erantzuteko modukoak izango direnak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hona hemen **etorkizunean** Israelekin egingo dudan ituna. Elizen arteko biblia

Orainaldi desatseginetik ihes egiteko ahalegina, ezezaguna den eta ezagutu ere ezin daitekeen **etorkizunera** salto eginez. Iñaki Mendiguren

Euskararen **etorkizunerako** ezinbestekoak dira euskaldun berriak. Koldo Zuazo

Keynesen oinarrizko ideia hala laburbildu daiteke: ekonomian, eta bizitzan oro har, ez dakigu **etorkizunak** zer dakarkigun; **etorkizunari** buruz zalantza da nagusi: ekonomilarien hitzak erabiliz, ziurgabetasuna. Iñaki Heras

Ez baitago **etorkizunik** esperantzarik gabe. Iñaki Heras

Dagoeneko aipatu dugu suntsitzen ari den estatu unibertsal baten eremu abandonatuan sartzen diren barbaroak **etorkizunik** gabeko heroiak direla. Iñaki Mendiguren

Iragan zena orain ere halaxe gertatzen da; **etorkizun** dena lehen ere gertatua da. Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gutxiengo etniko eta inmigrante gehienak **etorkizun** hobeago baten bila pilatzen direla gure hirietan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Fedegabeen **etorkizun** beltza. Elizen arteko biblia

Ez litzateke **etorkizun** kaskarra horrela balitz. Anjel Lertxundi

"Gure **etorkizun** komuna" izeneko Brundtland Txostenak sartutako Garapen Iraunkor kontzeptua berretsi zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zintzoen **etorkizun** distiratsua eta gaizkileen zigorra. Elizen arteko biblia

Idazten ari garen garaian, hala ere, Mendebaldeko munduaren **etorkizun** politikoa oraindik iluna zen. Iñaki Mendiguren

Langileriaren parte handi baten eredu utopikoak, nahi ala ez, lotura handiagoa du loteriaren lehen sariarekin edo Eurodisneyrekin munduaren **etorkizun** utopiko horrekin baino. Iñaki Heras

Etorkizun hurbilean egin daitekeen gauza bakarra, gure ustez, azpi lana da, ikusteko egoera aldatzeko gai garen horrela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egia litzateke esatea berrogei urteko edozein gizonek, neurrizko adimen-maila duenak, ikusi dituela -naturaren uniformetasunaren argitan- iragan eta **etorkizun** osoa. Iñaki Mendiguren

Berehalako **etorkizunean**, mundu islamikoaren geroa Mendebaldeko munduaren eta errusiar munduaren arteko indar-probaren mende egongo zen. Iñaki Mendiguren

Jerusalemek distirazko **etorkizuna**. Elizen arteko biblia

Badakit, hala ere, biek **etorkizun** bera dutela. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan)

Brundtland txostenean bi **etorkizun** mota deskribatzen ziren: bata bideragarria, eta bestea berriz bideragarria ez zena. Iñaki Heras

Sinesle Zaharren arabera, gizadiaren **etorkizun** -itxaropenez ernalduriko gizarte bakar izateari- uko egiten ari ziren. Iñaki Mendiguren

Orain **etorkizun** kontu jardun nahi dut, eta ez iragan kontu. Juan Garzia

4 ***etorkizuneko*** *izlag*

Etorkizuneko euskararen eta **etorkizuneko** Euskal Herriaren izenean. Koldo Zuazo

Gaur egungo beharrak asetzen dituen garapena, baina **etorkizuneko** belaunaldiek beren beharrak asetzea arriskuan jarri gabe. Iñaki Heras

Amerikaren bertute nagusia bere oraingo eta **etorkizuneko** mendekoen ikuspegitik zera zen: argi eta zintzo oso gogo gutxi zuela inola ere paper hori jokatzen hasteko. Iñaki Mendiguren

Izan ere norbanakoaren edo herrialdearen hasierako egoera oso garrantzitsua baita bere errentaren **etorkizuneko** ibilbidea zehazteko. Iñaki Heras

Ea horri eusten segitzea lortzen duzun, argitaletxe honen eta gure **etorkizuneko** harremanen mesederako. Jon Alonso

Etorkizuneko gizarte ekumenikoren bateko historialariek, iraganeko zibilizazio guztietan sustrai historikoekin, proportzioaren zentzu hobea erakutsiko dute ziur aski. Iñaki Mendiguren

Zuzendari literarioa isildu zen, zuzentzaileak bere **etorkizuneko** asmoei buruzko aldarrikapena egin zain. Jon Alonso

· Jada iraganekoak diren emaitzei begiratzen die negozioaren munduak, **etorkizunekoak** izan nahi luketenei begiratu ordez. Anjel Lertxundi

Bai egungo belaunaldiari buruz, eta baita **etorkizunekoei** buruz ere. Iñaki Heras

Guztien ongia ezarri zuten jokabidearen xede nagusitzat norberaren onaren gainetik, hala mundu honetan nola **etorkizunekoan**. Iñaki Mendiguren

4 ***etorkizunerako*** *adlag*

Pobreak direnez, errentaren parte handiena kontsumoan gastatzen dute, eta ez dute **etorkizunerako** zer gorderik, alegia, zer inbertiturik, ez hezkuntzan ez makinerian ezta teknologian ere. Iñaki Heras

· *izlag* Ezaguna da -bestelako argumentuez gainera- gizaki horien hezkuntzak **etorkizunerako** garapen ekonomikorako betetzen duen paper garrantzitsua. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

baina etorkizun (7); **bere etorkizun** (11); **da etorkizun** (9); **du etorkizun** (7); **ere etorkizun** (5); **eta etorkizun** (66); **eta etorkizun oparoa** (6); **etorkizun bat** (8); **etorkizun baten** (7); **etorkizun beltza** (19); **etorkizun berri** (5); **etorkizun bikaina** (10); **etorkizun bikaina du** (6); **etorkizun den** (5); **etorkizun ez** (5); **etorkizun handia** (19); **etorkizun**

handia du (5); etorkizun handiko (39); etorkizun hobe (13); etorkizun hobe baten (7); etorkizun hobea (13); etorkizun hobearen (6); etorkizun hori (13); etorkizun hurbila (5); etorkizun hurbilean (38); etorkizun iluna (16); etorkizun itxaropentsua (5); etorkizun komuna (5); etorkizun ona (8); etorkizun oparoa (29); etorkizun politikoa (20); euskal herriaren etorkizun (8); gabeko etorkizun (8); gure etorkizun (14); herriaren etorkizun (8); oso etorkizun (5); zein etorkizun (7); zer etorkizun (10)

baina etorkizuna (12); baten etorkizuna (8); bere etorkizuna (129); bere etorkizuna erabakitzeko (37); bere etorkizuna libre (6); bere etorkizuna libreki (8); beren etorkizuna (44); beren etorkizuna erabakitzeko (17); da etorkizuna (22); dago etorkizuna (5); du bere etorkizuna (10); du etorkizuna (14); dugu etorkizuna (5); dute beren etorkizuna (5); dute etorkizuna (5); edo etorkizuna (5); ene etorkizuna (7); enpresaren etorkizuna (8); eta bere etorkizuna (8); eta etorkizuna (113); eta etorkizuna ez (5); eta gure etorkizuna (9); etorkizuna are (5); etorkizuna argitu (8); etorkizuna argitzen (13); etorkizuna arriskuan (9); etorkizuna askatasunean (5); etorkizuna askatasunez (7); etorkizuna aztertzeko (5); etorkizuna bakean (14); etorkizuna bakean eta (11); etorkizuna baldintzatuko (5); etorkizuna baldintzatzen (6); etorkizuna beltz (6); etorkizuna beltz ikusten (5); etorkizuna beltza (7); etorkizuna bera (5); etorkizuna bere (8); etorkizuna bermatu (6); etorkizuna bermatuko (10); etorkizuna bermatzeko (34); etorkizuna beste (9); etorkizuna da (14); etorkizuna dago (11); etorkizuna dago jokoan (11); etorkizuna demokratikoki (9); etorkizuna du (9); etorkizuna erabaki (14); etorkizuna erabakiko (7); etorkizuna erabakitzea (15); etorkizuna erabakitzeko (115); etorkizuna erabakitzeko aukera (10); etorkizuna erabakitzeko duen (5); etorkizuna erabakitzeko duten (5); etorkizuna erabakitzeko eskubidea (43); etorkizuna erabakitzen (10); etorkizuna eraiki (10); etorkizuna eraikitzeko (11); etorkizuna ere (19); etorkizuna eta (36); etorkizuna euren (7); etorkizuna euskal (8); etorkizuna ez (45); etorkizuna ez da (9); etorkizuna ez dago (6); etorkizuna ezin (5); etorkizuna gure (8); etorkizuna ikusi (5); etorkizuna ikusteko (5); etorkizuna ikusten (7); etorkizuna ilun (6); etorkizuna iragarri (6); etorkizuna iragarriko (6); etorkizuna iragartzeko (5); etorkizuna iragartzen (9); etorkizuna izango (6); etorkizuna jokoan (11); etorkizuna kinka (5); etorkizuna kinka larrian (5); etorkizuna kolokan (29); etorkizuna kolokan dago (7); etorkizuna libre (8); etorkizuna libre eta (8); etorkizuna libreki (12); etorkizuna nafarrek (5); etorkizuna nafarrek erabakiko (5); etorkizuna nahi (6); etorkizuna nola (9); etorkizuna nolakoa (6); etorkizuna nolakoa izango (5); etorkizuna oso (10); etorkizuna zalantzan (12); etorkizuna zein (8); etorkizuna zein izango (5); etorkizuna ziurtatu (10); etorkizuna ziurtatzea (7); etorkizuna ziurtatzeko (12); euren etorkizuna (42); euren etorkizuna erabakitzeko (11); euskal herriaren etorkizuna (21); euskararen etorkizuna (9); gabeko etorkizuna (7); geure etorkizuna (8); gizarteak bere etorkizuna (16); gizartearen etorkizuna (5); gure etorkizuna (86); gure etorkizuna erabakitzeko (14); gure herriaren etorkizuna (7); haien etorkizuna (12); haren etorkizuna (14); herri honen etorkizuna (13); herriak bere etorkizuna (17); herriaren etorkizuna (31); herritarrek beren etorkizuna (10); herritarrek etorkizuna (5); herritarrek euren etorkizuna (10); honen etorkizuna (21); horren etorkizuna (8); ikusten du etorkizuna (6); iragana eta etorkizuna (16); langileen etorkizuna (5); lantegiaren etorkizuna (17); mendebaldeko zibilizazioaren etorkizuna (5); nafarroaren etorkizuna (8); navalen etorkizuna (19); neure etorkizuna (5); nire etorkizuna (30); nolako etorkizuna (8); ontziolaren etorkizuna (13); ontziolaren etorkizuna bermatzeko (5); ontziolen etorkizuna (6); oraina eta etorkizuna (10); osoaren etorkizuna (5); taldearen etorkizuna (11); zibilizazioaren etorkizuna (5); zinemaren etorkizuna (6); zuen etorkizuna (7); zure etorkizuna (15)

baina etorkizunari (8); baina etorkizunari begira (5); bere etorkizunak (5); bere etorkizunaren (16); bere etorkizunaren inguruan (5); bere etorkizunari (18); bere etorkizunari buruz (9); bere etorkizunaz (15); beren etorkizunaren (7); beren etorkizunari (7); da etorkizunari (5); da etorkizunari begira (5); dago etorkizunari (5); dio etorkizunari (7); eta etorkizunak (10); eta etorkizunaren (28); eta etorkizunari (45); eta etorkizunari begira (18); eta etorkizunari buruz (5); eta etorkizunari buruzko (5); eta etorkizunaz (21); etorkizunak emango (5); etorkizunak kezkatzen (6); etorkizunaren alde (10); etorkizunaren bermea (5); etorkizunaren gainean (6); etorkizunaren gaineko (7); etorkizunaren inguruan (26); etorkizunaren inguruko (14); etorkizunaren jabe (12); etorkizunari aurre (13); etorkizunari aurre egiteko (7); etorkizunari baikor (7); etorkizunari begira (176); etorkizunari begira ere (5); etorkizunari begirako (9); etorkizunari begiratu (7); etorkizunari begiratu behar (5); etorkizunari begiratzeko (5); etorkizunari buruz (97); etorkizunari buruz erabakitzeko (5); etorkizunari buruz galdetu (5); etorkizunari buruz hitz (7); etorkizunari buruzko (69); etorkizunari buruzko eztabaida (9); etorkizunari buruzkoak (5); etorkizunari dagokionez (6); etorkizunari itxaropenez (5); etorkizunari itxaropentsu (5); etorkizunari so (5); etorkizunaz erabakitzeko (10); etorkizunaz ere (7); etorkizunaz eta (10); etorkizunaz hitz (17); etorkizunaz hitz egin (7); etorkizunaz mintzatu (7); euskal herriaren etorkizunaren (5); euskal herriaren etorkizunari (22); euskal herriaren etorkizunaz (5); gure etorkizunaren (7); herriaren etorkizunaren (6); herriaren etorkizunari (25); herriaren etorkizunari buruz (15); herriaren etorkizunari buruzko (8); herriaren etorkizunaz (9)

Italian bere senide zituen oskoera eta unbriera dialekto italikoekin borrokatu behar izan zuen, eta mesapiera eta veneziera iliriar dialektoekin -garai batean kultura aldetik latinaren pare izanak-, eta zer esanik ez **etrurierarekin**, bere anatoliar sorlekuko kultur ondarea bere gain zuela. Iñaki Mendiguren

Etrurierazko lau lerrokada nahikoak dira frogatzeko **etrurieraz** hitz egin zuen herria oso desberdina zela latinez hitz egiten zuten talde etnikotik. Isabel Arrigain

Jorge Alonso historialariak plazaratutako teoria zalantzan jarri du Aranak: duela 2.000 urteko **etruriera** egungo euskararen bidez itzul daitekeela dioena. Berria - Kultura

Etruskoen eta euskaldunon arteko inongo loturarik ezin da frogatu **etrurieraren** eta gaur egungo euskararen bidez. Berria - Kultura

---

etrusko 1 *izond/iz* Etruriako biztanlea. ik **etruriar**.

Antzinako Italian latinoen ondoan **etruskoak** zeuden. Isabel Arrigain

Zaharrak dira baratze-mailak, **etruskoen** garaikoak. Xabier Olarra

Grekoen kultur konkistarik garrantzitsuena denboraldi honetan Erromaren helenizazioa izan zen, zeharka lortua **etruskoen** aurretiazko helenizazioaren bidez. Iñaki Mendiguren

Erromak, galiarren aurka, mundu helenikoaren zaintza **etruskoen** eskutik hartu zuenean erakutsi zuen bere gaitasuna, Tebasek, Nubiako barbaroen aurka. Iñaki Mendiguren

Greziar italiotak oskoen eta **etruskoak** zelten kontraeraso barbaroaren mende erori ondoren, erromatarrek helenismo latinizatua eraman zuten Apeninoen, Po eta Alpeen gainetik Mediterraneoko europar barrualde (hinterland) kontinentalean zehar ezarri zuten arte. Iñaki Mendiguren

Nire ustez, **etruskoen** eta euskaldunon arteko inongo loturarik ezin da frogatu etrurieraren eta gaur egungo euskararen bidez. Berria - Kultura

Bere Vitruvio hori, ordea, autoritatezko argumentu bat besterik ez da, jadanik, arkitektura greziarraren aurka beste arkitektura **etrusko**-erromatarraren nagusitasunaren alde egiten duen defentsa horretan. Santiago Iruretagoiena

Ahalkea etxean geratzen den gezurrezko **etruskoagatik**. Lopez de Arana

2 *izond* Etruriakoa, Etruriari dagokiona.

Hori esaten dute azti **etruskoek** ere beren diziplinei buruzko idazkietan. Santiago Iruretagoiena

Nekez uler daiteke eskulturaren historia zaldizko estatuarik gabe: Marini-renak zaldizko **etrusko** bat gogorarazten du. Anjel Lertxundi

Toskanako mendialdeko herrixka guztiak bezala, antzinakoa da eta hilobi **etrusko** ugari ditu. Xabier Olarra

Erretilu **etrusko** bat zen doi-doia. Koldo Izagirre

---

etsai 1 *iz* inor galdu edo hondatu nahi duen pertsona; norbaiti gorroto diona edo gerla egiten dion pertsona; norbaitek kaltegarritzat jotzen duen edozer gauza. ik **arerio; izterbegi; aurkari**.

Egun berean, gaztigua etorri zen Urdazubira: **etsaia** samaldan heldu zen Otsondon beheiti. Aingeru Epaltza

Zortzi mila juduek ehun eta hogei mila **etsai** garaitu zituztela Jainkoak emaniko laguntasunari esker. Elizen arteko biblia

Noiz arte gailenduko zait **etsaia**? Askoren artean

Adimenak **etsaia** baino indartsuago bihurtuko zaitu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aurrean eta atzean **etsaia** dugu, saihets batean Jordango urak eta bestean zingirak eta sastrakak. Elizen arteko biblia

Egitura horretan, **etsaia** ez da nehoiz biktima izatera heltzen. Itxaro Borda

-Gerra egon dadin, Maizter jauna, aski da **etsai** bat, ez bi -ihardetsi zuen Éowynek-. Agustin Otsoa

Ez dadila poz **etsaia** nire zoritxarraz: erori banaiz ere, jaikiko naiz. Elizen arteko biblia

Hurtado errepublikaren aldekoa zen, Montaner erregeren familiaren aldekoa; Hurtado burgesiaren **etsaia**, Montaner aberatsen eta aristokraziaren aldekoa. Josu Zabaleta

Zintzo jarduten zuten egunero otoitzean eta beren eskuez lan egiten, arimaren **etsai** den alferkeria erabat uxatzeko. Askoren artean

Beraz, zure **etsaia** gose bada, emaiozu jaten. Elizen arteko biblia

Gure **etsaia** oso hurbil, gure baitan, egon daitekeela. Bernardo Atxaga

Salomon bizi izan zen artean, Israelen **etsai** izan zen Rezon hura. Elizen arteko biblia

Izan ere, Toi eta Hadadezer elkarren **etsai** ziren. Elizen arteko biblia

Bekatariak eta zuzengabeak beren buruaren **etsai** dira. Elizen arteko biblia

Agure eszeptiko eta ironiko bat zen, erretorika guztien **etsai**. Juan Garzia

Euskalgintzaren jardueraren pizgarri eta sustagarri seinalatuena eta haren beharra nabarmenenik erakusten duena, euskararen **etsai** eta erasotzaileen lan gaiztoa da. Iñaki Segurola

Jainkoarengandik datorkigu laguntza; berak libratu gaitu **etsai** guztiengandik. Elizen arteko biblia

Koinatua lagun eta senarra **etsai**! Aingeru Epaltza

Beraiengana datorren oro, adiskide nahiz **etsai**, lapur nahiz gaizkile, gozo har bezate. Askoren artean

Piamontea eta Turin, ez zitzaizkigun **etsai**. Juan Garzia

Etsaia garaitzeko biderik errazena **etsaia** suntsitzea da. Joxerra Garzia

Patriotismoa berotu, barruko edo kanpoko **etsaia** ikaragarritu, Ongiaren defentsan masak mobilizatu. Joxe Azurmendi

Kausa, etiologia [...] beti edo gehienean da kausa eragozlea, zapuztailea, galarazlea eta ixilarazlea, hitzaren eta arrazoiketa garbiaren **etsaia**. Iñaki Segurola

Gerretan **etsaia** baita aukeratzen den gauza bakarra, laguna ez da aukeratzen ahal, **etsaiak** elkartu ditu Stalin eta Churchill, gu eta Aitzol. Koldo Izagirre

Gorputzez erabat ahuldua bazegoen ere, borroka berrietan **etsaiaren** aurka garaipena lortzea zuen amets. Askoren artean

Etsaiarengandik beti zerbait ikasten baita, Migel Mailuk ere opor eginarazi zien Donapaleuko notarioei. Aingeru Epaltza

Etsaiari eta honen kideei dagokie triste egotea; guri, berriz, Jaunarengan beti poztea eta alaitzea. Askoren artean

Herri guzia kurritu zuen garrote edo makila lodi bat airean, ber denboran gomitatuz nor ere baitzuen **etsaia**, han berean berarekin borrokatzera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Etienne nire **etsai** zaharraren bozaren oihartzuna zekarren haien solasak. Aingeru Epaltza

Laeti termino teknikoa [...] mendebaldeko germaniar hitz batetik dator, atzerriko egoiliar erdijopuak adierazteko hitz batetik; eta **etsai** barbaro menderatuen ondorengoak zirela ondoriozta genezake.1791tik hara, iraultzaren aurka ziren apezen ekinaz, frantses **etsai** fedegabearen legearen ukatzeari eman zitzaion hasiera. Iñaki Mendiguren

Luis zendu eta Frantzisko etorri, Frantziako I.a, espainolen **etsai** porrokatua. Aingeru Epaltza

Ez baitaukat nire gorputza baino **etsai** okerragorik. Behinola, Cepranoko gizon bat, Nikolas izenekoa, **etsai** ankerren eskuetan erori zen. Askoren artean

Legerik eta federik gabeko **etsai** zitalen esku utzi gaituzu. Elizen arteko biblia

Etsaiek garaituko zaituztete, **etsai** gorrotagarrienek menperatuko. Elizen arteko biblia

Bi gizon, elkarren **etsai** amorratuak, liskarrean zebiltzan aspalditik. Askoren artean

Behin baino gehiagotan ikusi izan bainituen aita Bartolome etorri berria eta osaba Joanikot kontrakarrean, buruz buru, **etsai** ozpinduak balira bezala, nor bere muturrean, urrats bat bera ere gibelatu gabe. Joan Mari Irigoien

Entzun, ene Jainko, nire kexa, zaindu nire bizia **etsai** beldurgarriongandik. Elizen arteko biblia

Etsai mendekuzaleak isilarazteko. Elizen arteko biblia

Etsai ikusezinek, mundu honetan eta gerokoan zigorra emateko Jaunaren borrero diren deabruek. Askoren artean

Etsai bakar batek mehatxu egin, eta zuetako milaka ihesi. Elizen arteko biblia

Haiek ordea, infernuko **etsaia** berbera ikusi izan balute bezala egin ziguten ihes hondartza aldera. Inazio Mujika Iraola

Txakurrak bere aspaldiko **etsaia** antzeman zuenean, urrumaka hasi zen, eta ilea laztu egin zitzaion. Joanes Urkixo

Ondoren, zeru goienetatik jaitsi gabe, arranoa, putrearen ustezko **etsaia**. Iñaki Segurola

Zitala baitzen **etsaia**, hain zitala non deabruaren laguntza baitzuen. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Itsaso Hilaz bestaldetik, Edom lurraldetik, **etsai**-talde ugaria datorkizu. Elizen arteko biblia

Ustekabean heldu eta su ematen zien hiri eta herrixkei eta, gudu-tokirik egokienak harturik, ihes eragiten zien **etsai**-multzo handiei. Elizen arteko biblia

Filologoa azkar asko ohartzen da ez dela hori bere saila, **etsai**-lurrean sartu dela ustekabean. Iñaki Segurola

Ez zinen garbi-jator horietakoa, **etsai**-lagun kolaborazionista sasikoa zinen jendaila buru-zapal ortogonalarentzat. Iñaki Segurola

Gnôr Grassiadiô eta Gnôr Côlombô bi lagun-**etsai** ziren, zeinak, ele zaharrek jasotzen dutenez, aurkez aurke bizi izan baitziren inork oroit dezakeen baino aspaldi luzeagotik. Juan Garzia

4 (izenondo edo adizlagun gisa)

Ortzian guri arrotz zaigun korrontea abiatzen eta aire **etsaia** zabaltzen hasten denean. Xabier Amuriza

Zori **etsaia** madarikatu nuen une hartan zinerako dirua lapurtu izan balidate baino zakarrago. Anjel Lertxundi

Agian saratarrak bezala madarikatzen du bere "zorte **etsaia**". Anjel Lertxundi

Edertasun hura, paraje antzu eta **etsai** hartatik ikusteak areagotuta, bihotzeraino iritsi zitzaion, esperantza berriro sortuz. Agustin Otsoa

Atsedenean zegoen orduan, sua behin-behinean apalduta, eta garai agertzen zen, arriskutsu eta **etsai**, lotan dagoen piztiaren antzera. Agustin Otsoa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arimaren etsai (7); **arimaren etsai den** (6); **artean etsai** (3); **baino etsai** (5); **bere etsai** (15); **beren etsai** (4); **bertze etsai** (3); **beste etsai** (7); **beste etsai bat** (4); **bestearen etsai** (3); **bi etsai** (6); **borrokalari etsai** (3); **da etsai** (4); **ditu etsai** (4); **dituen etsai** (3); **du etsai** (4); **edo etsai** (6); **elkarren etsai** (32); **elkarren etsai ziren** (6); **ere etsai** (7); **eta elkarren etsai** (3); **eta etsai** (31); **etsai amorratu** (10); **etsai amorratua** (10); **etsai amorratuak** (14); **etsai amorratuak ziren** (3); **etsai asko** (9); **etsai asko zituela** (3); **etsai baino** (4); **etsai baino gehiago** (3); **etsai bakar** (3); **etsai bakarra** (3); **etsai bat** (28); **etsai batek** (4); **etsai baten** (10); **etsai baten kontra** (3); **etsai batera** (3); **etsai bati** (4); **etsai bera** (3); **etsai beraren** (3); **etsai bezala** (7); **etsai bihurtu** (12); **etsai bihurtu zaizkio** (3); **etsai bihurtuko** (4); **etsai bihurtzen** (12); **etsai bihurtzen dira** (3); **etsai bilakatu** (6); **etsai borrokalari** (3); **etsai da** (3); **etsai den** (8); **etsai den alferkeria** (4); **etsai dira** (6); **etsai diren** (5); **etsai edo** (4); **etsai egiten** (4); **etsai eta** (22); **etsai gaiztoak** (3); **etsai gehiago** (4); **etsai gisa** (10); **etsai gogorra** (3); **etsai guztiak** (20); **etsai guztiei** (5); **etsai guztiek** (6); **etsai guztien** (7); **etsai handiena** (5); **etsai handienak** (4); **etsai handienetarik** (4); **etsai hori** (5); **etsai horiek** (5); **etsai izan** (16); **etsai izan ziren** (3); **etsai izango** (6); **etsai izatea** (5); **etsai nagusia** (8); **etsai nagusiak** (6); **etsai politikoak** (5); **etsai porrokatua** (6); **etsai publiko** (4); **etsai publiko nagusia** (3); **etsai zen** (3); **etsai ziren** (10); **euskararen etsai** (7); **ez etsai** (5); **gizakiaren etsai** (3); **gure etsai** (6); **halako etsai** (3); **haren etsai** (4); **herriaren etsai** (5); **hiru etsai** (3); **iraultzaren etsai** (3); **islamaren etsai** (3); **italiaren etsai** (3); **jainkoaren etsai** (7); **juduen etsai** (4); **lagun ez etsai** (3); **lagunak etsai** (3); **mila etsai** (3); **neure etsai** (3); **nire etsai** (18); **ororen etsai** (4); **zein etsai** (3); **zen etsai** (4); **ziren etsai** (3); **zuen etsai** (6); **zure etsai** (4)

adimenak etsaia (4); **adimenak etsaia baino** (4); **aspaldiko etsaia** (3); **baina etsaia** (6); **baina etsaiak** (6); **benetako etsaia** (3); **benetako etsaiak** (4); **bere etsaia** (7); **bere etsaiak** (10); **beren etsaiak** (7); **da etsaia** (8); **den etsaia** (8); **dira etsaiak** (4); **ditu etsaiak** (3); **ditut etsaiak** (3); **du etsaiak** (3); **duen etsaia** (3); **elkarren etsaiak** (3); **ere etsaiak** (4); **eta etsaia** (18); **eta etsaiak** (36); **eta keu etsaiak** (3); **etsaia aurkitu** (3); **etsaia baino** (7); **etsaia baino indartsuago** (4); **etsaia bere** (3); **etsaia beti** (3); **etsaia da** (21); **etsaia da eta** (3); **etsaia dela** (5); **etsaia den** (5); **etsaia edo** (4); **etsaia ere** (4); **etsaia eta** (6); **etsaia ez** (14); **etsaia ez da** (5); **etsaia ez zen** (3); **etsaia ikusten** (3); **etsaia non** (3); **etsaia non den** (3); **etsaia zen** (6); **etsaiak baino** (3); **etsaiak berak** (3); **etsaiak bere** (5); **etsaiak dira** (12); **etsaiak dira eta** (4); **etsaiak direla** (6); **etsaiak egiten** (3); **etsaiak en** (3); **etsaiak ere** (8); **etsaiak esan** (3); **etsaiak eta** (18); **etsaiak eta egin** (3); **etsaiak ez** (18); **etsaiak gure** (3); **etsaiak handik** (3); **etsaiak hil** (4); **etsaiak ikusi** (3); **etsaiak irainka** (3); **etsaiak madarikatzeko** (3); **etsaiak maitatzeko** (3); **etsaiak oinazpian** (4); **etsaiak oinazpian jartzen** (4); **etsaiak oro** (4); **etsaiak pertsegitu** (3); **etsaiak sakabanatu** (3); **etsaiak ustekabean** (3); **etsaiak zigortzeko** (3); **etsaiak zirela** (3); **etsaiak ziren** (4); **etsaiak zirikaturik** (3); **etsaiak zuen** (4); **euskararen etsaiak** (3); **giza naturaren etsaiak** (3); **gure etsaia** (12); **gure etsaiak** (14); **haren etsaiak** (4); **herriaren etsaia** (5); **herriaren etsaiak** (3); **infernuko etsaia** (5); **inguruko etsaiak** (3); **jaunak bere etsaiak** (4); **juduek beren etsaiak** (4); **kanpoko etsaia** (3); **keu etsaiak** (3); **lehen etsaiak** (3); **maitatu etsaiak** (6); **maitatu etsaiak eta** (3); **naturaren etsaiak** (3); **nire etsaia** (4); **nire etsaiak** (16); **zen etsaia** (3); **zeure etsaiak** (3); **zeure etsaiak oinazpian** (3); **ziren etsaiak** (8); **zituzten etsaiak** (4); **zorte etsaiak** (3); **zuen etsaia** (5); **zuen etsaiak** (7); **zure etsaia** (7); **zure etsaiak** (16); **zuten etsaiak** (3)

baina etsaiaren (3); **baina etsaien** (6); **bakea beren etsaien** (3); **begira nezazu etsaien** (3); **bere etsaiaren** (3); **bere etsaiari** (3); **bere etsaiei** (5); **bere etsaiek** (4); **bere etsaien** (8); **beren etsaiei** (3); **beren etsaien** (5); **beren etsaien aurrean** (3); **beren etsaiengandik** (3); **berrietan etsaiaren** (3); **berrietan etsaiaren aurka** (3); **borroka berrietan etsaiaren** (3); **da etsaiaren** (5); **da etsaien** (3); **da etsairik** (4); **dabiltzan etsaien** (4); **dabiltzan etsaien esku** (4); **die etsaiei** (3); **diogu etsaiari** (3); **du etsaien** (4); **du etsairik** (3); **dut etsaien** (3); **duten etsairik** (3); **ere etsaiaren** (4); **eta etsaiaren** (19); **eta etsaiaren aurrean** (3); **eta etsaiari** (5); **eta etsaiei** (5); **eta etsaiek** (5); **eta etsaien** (34); **eta etsaien esku** (3); **eta etsaien kontra** (3); **eta etsaiengandik** (5); **etsaiarekiko auzian** (4); **etsaiaren amorrua** (3); **etsaiaren amorrua pitz** (3); **etsaiaren aurka** (14); **etsaiaren aurrean** (6); **etsaiaren ehiza** (3); **etsaiaren esku** (8); **etsaiaren eskuetan** (7); **etsaiaren ezpata** (3); **etsaiaren gogoa** (3); **etsaiaren indarrak** (3); **etsaiaren kontra** (9); **etsaiaren kontrako** (5); **etsaiari aurre** (9); **etsaiari aurre egiteko** (3); **etsaiari barkamenik** (4); **etsaiari barkamenik ez** (3); **etsaiari buru** (3); **etsaiari ihes** (3); **etsaiei aurre** (6); **etsaiei aurre egiteko** (3); **etsaiei buruz** (3); **etsaiei eta** (3); **etsaiei kendutako** (3); **etsaiek berek** (3); **etsaiek beren** (6); **etsaiek ez** (4); **etsaien aldera** (4); **etsaien artean** (8); **etsaien arteko** (4); **etsaien aurka** (29); **etsaien aurka borrokatzeko** (4); **etsaien aurkako** (3); **etsaien aurrean** (19); **etsaien bizkar** (3); **etsaien esku** (22); **etsaien esku utzi** (6); **etsaien esku utziko** (8); **etsaien eskuetan** (8); **etsaien eskuetatik** (5); **etsaien eskura** (3); **etsaien eskutik** (3); **etsaien eta** (6); **etsaien ezpataz** (3); **etsaien gainera** (3); **etsaien gogara** (3); **etsaien gudarostea** (4); **etsaien hiriak** (3); **etsaien kanpalekura** (3); **etsaien kontra** (25); **etsaien kontrako** (4); **etsaien lepotik** (4); **etsaien menpe** (7); **etsaien menpetik** (7); **etsaien porrotaz** (4); **etsaiengandik babesteko** (4); **etsaiengandik libratu** (3); **etsaiengandik salbatu** (3); **etsaietako batek** (3); **etsairen bat** (5); **etsairen batek** (4); **etsairik ez** (7); **etsairik gabe** (3); **etsairik handiena** (18); **etsairik handienak** (7); **etsaitzat hartu** (3); **etsaitzat hartzen** (5); **etsaitzat jo** (3); **euskal herriaren etsaien** (3); **euskararen etsaiek** (3); **ez da etsairik** (3); **ez etsaiari** (3); **gure etsaiaren** (4); **gure etsaiei** (3); **gure etsaiek** (6); **gure etsaien** (10); **haien etsaiek** (3); **haren etsaiek** (3); **haren etsaien** (3); **herriaren etsaien** (3); **inguruko etsaiengandik** (3); **nahian dabiltzan etsaien** (4); **nezazu etsaien** (3); **nire etsaiaren** (3); **nire etsaiari** (3); **nire etsaiek** (4); **nire etsaien** (3); **nire etsairik** (3); **oraindik etsaiaren** (3); **oraindik etsaiaren amorrua** (3); **zen etsaiaren** (5); **zen etsaien** (4); **zen etsairik** (3); **zeuen etsaien** (5); **zeure etsaien** (4); **ziren etsaiaren** (3); **ziren etsaien** (6); **zituen etsairik** (3); **zuen etsaiaren** (3); **zuen etsaien** (4); **zure etsaiaren** (4); **zure etsaien** (5)

---

etsaigo *(ETCn **441** agerraldi)* **1** *iz* etsaitasuna.

Ekintza bat zenbat eta txarragoa izan eta Jainkoarentzat arrotzago, orduan eta handiagoa izango da ekintza honekiko **etsaigoa** ; **Etsaigoa** tentuz ekidin, lasaitasunez eraman, ahalik lasterren amaitu. Joan Mari Lekuona

Oso matematika bitxia ibiltzen baita gauza hauetan: irainik ez dagoen lekuan irainak daudela salatzeak egiazko irainak sortzen ditu luze baino lehen; eta batzuen laguntasuna bilatzeak beste batzuen **etsaigoa** ekarri ohi zuen, kit beraren barruan. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire baitan zerbait tenkatu zitzaidan, **etsaigo** eta mira aldi berean, beste emakume batekiko haragizko konplizitate ageriko horren aurrean. Eduardo Matauko

Gorrotoak eta **etsaigoak** ere bizirik diraute. Berria - Harian

Gure arteko herrak eta **etsaigoak** pizten duten guzia behar da gaitzetsi eta baztertu Julioren jarreran, jeloskortasuna eta **etsaigoa** nahasten ziren; jeloskortasuna, maistrak haurren eta gurasoen artean zuen arrakasta ikusita; **etsaigoa** , maistraren pentsamoldea ez baitzuen ontzat ematen, bera erregimenaren aldekoa zen eta. Herria

Efraimen ikusezina galdu egingo da eta Judaren **etsaigoa** amaitu. Elizen arteko biblia

Herriak Jainkoarekin adiskidetu ditu eta gurutzeko heriotzaren bidez gorputz bakar batean elkartu, beraien arteko **etsaigoa** suntsituz. Elizen arteko biblia

Etsaigoak ez gaitu bultzatuko gaitzari gaitzaz erantzutera, neurrigabeko tristezia sakonak ez gaitu itoko. Imanol Unzurrunzaga

Bat egin ditu berak bi herriak, bereizten zituen **etsaigoaren** hesia deseginez. Elizen arteko biblia

Polizia-buruak haren "obedientziarik eza eta menpetasun ororekiko **etsaigoa"** azpimarratzen ditu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez zuten nahi gorteko inork ikus zezan beren kontesta irmoan errege bidezkoenganako **etsaigorik** , are gutiago espainol etsaiarenganako adiskidetasunik. Aingeru Epaltza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sanchez jeneralaren iritzian, xiiten eta suniten artean **etsaigo** handia egon arren, loturak egon dira koalizioko indarrei batera aurre egiteko xedean. Berria - Mundua

Berehala damutuko nintzen, bilkurara inorendako **etsaigo** berezirik ekarriko ez zuen lagun bakarra izanen baitzen. Aingeru Epaltza

Gerra ostetik zirauen demokrata kristauen eta komunisten arteko **etsaigo** hitzartuak ez zuen hain krisi larririk izan, 1948an, gazte batek Togliatti-ren kontra atentatu zuenetik. Anjel Lertxundi

Ez esatea tokatzen zaie Aita hilak amaigabe inposatu nahi duen nahitaezko **etsaigoari** , borrokari, heriotzari, sakrifizioari. Joseba Zulaika

3 (hitz elkartuetan)

Errauts okre zein berdailezko izarbela eriz erakusten zidan berme, bakarretan begietara behatzen ninduela, **etsaigo** aierurik ez zeukan irri batez. Itxaro Borda

Mohammad Khatami Irango presidenteak atzo adierazi zuen Iranek «bake jokabidea» daramala Iraki buruz eta, honezkero, ez duela herrialde honetara eraman nahi AEBei begira daukan **etsaigo** jarrera. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arteko etsaigoa (4); **eta etsaigoak** (6)

---

etsaikeria *iz* etsaitasuna, gaitzezgarritzat markatua.

Haren hitz guztiak gizakien arteko **etsaikeriak** desegitera zihoazen eta bake akordioak bultzatzera. Askoren artean

Etxe batean noiz **etsaikeriak** erematen duen nagusi gida, familia gelditzen da joa eta ilun, bihotza zauritua. Herria

Jainkoak halako indar berezia eman zien haren hitzei, ezen nobleen familia asko, **etsaikeria** zaharren gorroto-suak bultzaturik odol asko isurtzen ari zirenak, bakeak egin baitzituzten orduan. Askoren artean

Jakinguraz begiratzen zieten, nahiz eta inork ez erakutsi Belaskoren moduko **etsaikeriarik** . Joanes Urkixo

---

etsaikor *izond* etsaitasunezkoa.

Jende hori berezko tradizio indartsuak eta munduan egoteko modu finkatuak dituzten irlak utzi eta, bat-batean, espazio basa eta aldi berean nahiko **etsaikor** batera abiatzen da eta bertan bizirauteko, hainbat eskualdetako kulturak korapilatu behar dituzte, haietako bat bera ere ez izan arren besteen gainetik ezartzeko bezain maioritarioa. Bego Montorio

---

etsaikortasun *iz* etsaikorra denaren nolakotasuna.

Eta nola gure etsaien eta gure parekoen oparotasuna gogaikarritzat jotzen dugun eta, horrexegatik, txartzat, eta gainera hala da (hura bere ohorea, aberastasuna eta boterea gehitzen dituelako, eta hau, berriz, **etsaikortasunagatik**); [...]. Esteban Antxustegi

---

etsaiperatu, etsaipera(tu), etsaiperatzen da/du *ad* etsaien pean gertatu.

Damua erakutsi zutenean, erabat beheititurik zeudela eta **etsaiperaturik**, haiez errukitu zen 'eta Haren borondateak ez zuen gehiago nahi izan haien pairuak eta miseriak irauterik'. Xabier Kintana

---

etsaitasun *(ETCn **723** agerraldi)* **1** *iz* etsaien arteko gorrotozko sentipena. ik **etsaigo**; **areriotasun; etsaikeria**.

Begikotasun hori **etsaitasun** bihurtzen ari zela ikusi zuen. Josu Zabaleta

Tabakoaren inguruan, berriz, OMEk dio nikotina faltak suminkortasuna, **etsaitasuna** edo liskarrerako gogoa eta antsietatea eragiten dituela, besteak beste. Berria - Gaiak

Adiskidetasunetik **etsaitasunerako** aldaketak kultur atalase eroankor hori (limen) fronte militar banatzaile (limes) bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Ez dugu beldurrik eta iraganeko errezeloak eta **etsaitasunak** atzean utzi behar ditugu. Berria - Mundua

Italian, gerra osteko lehen urteetan, egoera politikoa oso arriskutsua zen: gerrak eta faxismoak bere azken arnasaldietan piztutako gorroto eta **etsaitasunek** bizirik zirauten, mendekuzko hilketak eta kontu-konpontze politikoak eguneroko gauza ziren. Koldo Biguri

Bazen zerbait haren jarreran, ez **etsaitasuna** baina bai bereizketarik eza adierazten zuena, baita haren gizalege hotz eta automatikoan eta umore onean ere. Xabier Olarra

Horvathi **etsaitasunez** egin zion so, begiak estututa. Anton Garikano

Lehenengoek ere izango dute oraindik zigorra, arrotza **etsaitasunez** hartu izateagatik. Elizen arteko biblia

Begiratzen dute halaber, gezi-leihoetatik zelata eginez, ba ote datorren orgaren bat edo gurdiren bat herrira, ba ote den albisterik auzo berriko etxeetan, halako **etsaitasun** bat ere falta ez dutela, herri barneko biztanle guztiek ezinikusi ilun eta azaltzen zail bat sentitzen baitute harresiez kanpoko herrikideengana. Koro Navarro

Zakurren eta katuen arteko **etsaitasuna**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Industri gerra kronikoak, makinek eta haien jabeek hiltzeraino lan eragin ez ziezaioten orain langileak egin behar zuen gerra horrek lan-bizitzarekiko **etsaitasuna** sortu zuen haren gogoan, arbaso nekazariek normaltzat hartu izan zuten lan-bizitza. Iñaki Mendiguren

Mundu osoan ez da alemaniarren eta juduen artekoa bezalako **etsaitasunik**. Josu Zabaleta

Errusiaren azpian egoteak sortzen zien gorrotoari ez ote zitzaion lotu erlijio grekoaren eta musulmanaren arteko **etsaitasuna**. Karlos Zabala

Milaka urteko **etsaitasunean** sustraitua. Koro Navarro

2 (izenondoekin)

Bai, aitaren xake-liburuko jokalari errusiar eta alemana ziren haiek, inondik ere, edo halaxe irudikatu nituen nik ganbitoaren estrategia liluragarria ikastean: zaharrak, isilak, pentsakorrak, eta bizkarrak **etsaitasun** adiskidetsu batez taula gainean okertuak. Alberto Ladron Arana

Emakume askorekin ibilia zen sesioan, **etsaitasun** lauso batzuk tarteko. Juan Garzia

Bi hilabete baino gehiago behar izan zituen, Lisaren **etsaitasun** sorraz jabetzeko. Karlos Zabala

Titular berrien **etsaitasun** pribatuekin lotura estua izaten zuten. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan)

Kigalik, aldiz, akusazioak ukatzeaz gain, Kinshasak mugara 10.000 soldadu bidaltzea **etsaitasun** neurria izango litzatekeela. Berria - Mundua

Elkarrizketan parte hartu gabe egon zen denbora luzean, entzuten, **etsaitasun**-aire lasai bat harturik, lagunek jesuitei buruz jarduten zuten bitartean. Irene Aldasoro

Autore askok gogorarazten dute gero eta normalagoa dela aldameneko bizilagunak ez ezagutzea, eta igogailuko isiltasunak **etsaitasun** giroa sortzea. Berria - Gaiak

Batek hori ez betetzekotan, indarrean jartzen da gerrarako eskubidea, hau da, **etsaitasun** egoerara itzultzen da, non den-dena zilegi den, baita erresistentzia ere. Esteban Antxustegi

4 ***etsaitasunezko*** *izlag*

Azalpen gisa, esan liteke harreman haiek **etsaitasunezko** harremanak zirela, mendebaldarra literatur helenikoko liburutegi bizantziarrarekiko jarrera onean jartzen ez zutenak. Iñaki Mendiguren

Josu Erkoreka EAJko Kongresuko bozeramailearen ustez, «**etsaitasunezko** ekintza» izan da aurrekontu horien negoziazioetara begira. Berria - Ekonomia

Estatuen arteko harremanak naturalak baitira, hau da, **etsaitasunezkoak**. Esteban Antxustegi

Irribarrez dago, baina bere begiradak jakin-min ia **etsaitasunezkoaz** so egiten dit bekoz beko. Monika Etxebarria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arteko etsaitasuna (3)

---

etsaitu, etsai(tu), etsaitzen **1** da/du *ad* etsai bihurtu.

Funtzionarioak, argi eta garbi esanik, elkarrekin haserretu eta **etsaitu** ziren zergatikorik gabe. Jose Morales

Bi dama -lagun handiak biak, eta gainera ahaideak- betiko **etsaitu** ziren zergatik eta bietako batek bisita itzuli ez ziolako besteari. Jose Morales

Frantziarekin **etsaitzearen** truke. Aingeru Epaltza

Baina, zer egin dut nik gaizki, mundu guztia nirekin **etsaitzeko**? Koldo Biguri

Autorea ezin da inola ere bere protagonistarekin **etsaitu**: bide eta bidaia asko egin behar dituzte oraindik biek elkarrekin. Jose Morales

Albert Camusekin zuen harreman hondarra hautsi zuen gero, eta betiko **etsaitu** ziren biak. Monika Etxebarria

Txitxikovek ia nahi gabe eginiko destainak berriro adiskidetu zituen damak, ia **etsaiturik** baitzeuden ate ondoko aulkiaz jabetzeko lehia gertatu zenetik. Jose Morales

Seme-alabak, senarra, morroi-neskameak jotzen zituen, eta bere lagunak **etsaitzea** gustatzen zitzaion. Josu Zabaleta

Oso zaila ikusten dut **etsaitzen** zaituen toki batean egotea. Berria - Harian

Frantziarekin **etsaitzearen** truke. Aingeru Epaltza

2 (era burutua izenondo gisa)

Ideologia kontrajarri eta **etsaituen** gainetik, posible eta beharrezkoa zela bi indar handi horien arteko akordioa, gizarte osoaren onerako eta bakerako. Koldo Biguri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etsaitu ziren (3)

---

etsamina *(orobat **esamina** g.er.)* **1** *iz* azterketa.

Froga transzendentalaren **etsamina** egiten hasiko naiz, eta ondoren ikusiko dut ea osagarri enpirikoak zer egin dezakeen bere froga-indarra areagotzearren. Ibon Uribarri

"Brevet des Collèges" **etsaminan** Historia eta Geografia euskaraz pasatzeko ahala dute. Herria

Etsaminetan eta kliniketan dabila jakiteko.Orain arte 1.308 ikasle izena emanda daude lehenengo mailako **etsamina** egiteko, eta 1.335 bigarrenean aztertzeko. Herria

Orain arte, Iparralde huntako ikasleek, baxoa edo batxilergoa pasatu ondoan, Pariserat joan behar zuten **etsaminak** edo azterketak espainolez pasatzera, nahi balin bazuten Espainol estadoan, eta beraz Hegoaldean, beren ikasketak aitzina ereman. Herria

LAPDko burua zen John Biscayk, polizia izateko **etsamina** erdietsi berri zuen Peter aurkeztu eta hortik aurrera elkarrekin patruilan ibiliko zirela iragarri zion. Itxaro Borda

Etsaminak erreusituz, iratzarri orduko otoitzean murgildua, maite nuen neska ezin ahantziz. Piarres Aintziart

Jakin dugunaz, gure gazteek, denek kausitu dituzte beren **etsaminak**. Herria

Etsamina lortu bezain laster, leku bat hitz emana zitzaion kantonamenduko hiriburuan sortzear zegoen haurtzaindegian. Itxaro Borda

Denetarik kontatu nion, nola hasi berria nintzen ikasten eta **etsamina** bat huts egin nuela Matematikako klasean. Javi Cillero

Adigai hauek nire asmoari dagokionez zehazki determinatzea saiatu nahi dut hauei halako bereizkuntza egitea gomendatu dien ezbaiaren eta honen erabilera onaren edo antzuaren **etsaminan** geratu gabe. Ibon Uribarri

Etsaminako galdera izateko aukera gehien zutenak baizik ez genituen ikasten. Berria - Kultura

Etsaminetako emaitzak. Herria

Dembak - **etsaminarako** prestatzaileak- bere gain hartu zuen erruaren zatirik handiena. Anton Garikano

Hastear ziren **etsaminen** estutasunetik libratuko ginen. Joseba Sarrionandia

Etsaminarako eskuliburu bat ikasi behar zenez, eta Sobrinoren irakasgaiak "maria" fama zuenez, ez zen inor kexatu. Iban Zaldua

Isiltasun erabateko hark eskola garaiko **etsaminak** ekarri zizkidan gogora. Hasier Etxeberria

Europako Konstituzio Itunaren erreferenduma hitzordu garrantzitsua izango da zure ustez? Bai, bihurtuko delako herri honen **etsamina** bat bezala, eta gauzak ongi egiten badira, indar metaketa bizkor bat egin litekeelako. Berria - Euskal Herria

CAP/BEP eta BTS diplometan %-eko 10 gehiagok eskuratzen dute **etsamina** eta baxo teknologikoetan %-eko 7 gehiagok. Herria

2 (izenondoekin)

Ez da behar arrazoimenaren kritikarik bere erabilera enpirikoari dagokionez, zeren bere oinarri-esakuneei esperientziaren frogarrian **etsamina** jarraitua egiten baitzaie. Ibon Uribarri

Era guztietako aitzakiak bilatzen dira bere sendotasunaz ziurtasuna lortzeko, edo baita halako **etsamina** berantiar eta arriskutsua saihesteko ere. Ibon Uribarri

Etsamina zorrotzenari eta ikerkuntzaren zehaztasun handienari aurka egiten diela dirudien inferentzia. Ibon Uribarri

Eta ez zen ederra izango, ze igual Josemari Anakabe, Luzio Ugarte, Anjel Uribe eta abar, gu guztiok, ez ginen handiak izatera helduko, eta **etsamina** finalak ere ez genituen egingo, eta herriko karlisten erruz hilko ginen. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan)

Legeen aplikazioan nabarmentzen den antinomia nomotetikaren **etsamina**-saialdi onena da gure jakituria zedarriztatuan. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere etsamina (3); **etsamina bat** (3); **etsaminak huna** (3); **etsaminetan kausitze** (3)

---

etsaminatu, etsamina(tu), etsminatzen du *ad* aztertu.

Eta, gizonak bere baitarik kanpoan zuèn zentroa bere baitarat ekartzen duela, ikuspuntu berri batez **etsamina** zezakek bere burua, baita buruz buru duen mundua ere. Joan Mari Irigoien

---

etsaminatur *iz ipar* norbaiten azterketa ikertzen duen pertsona. ik **etsaminatzaile 2**.

Aintzineko galdeen ondotik hasi zen **etsaminaturra** ene greka eta latinaren miatzen. Herria

---

etsaminatzaile *iz* **1** norbaiten lana edo egitekoa aztertzen duen pertsona.

denbora laburregi izan baitut, eta gainerakoan ez baitut **etsaminatzaile** aditu eta inpartzialengan gaizki-ulertzerik aurkitu, eta **etsaminatzaile** hauek merezi duten laudorioz aipatu ezin ditudan arren, beren kabuz ikusiko dute zuzendutako pasarteetan egin zizkidaten oharrei lotu natzaiela. Ibon Uribarri

2 norbaiten azterketa ikertzen duen pertsona.

Dena dela, ordea, onuragarria da ezbairik gabe arrazoimen ikertzaileari eta **etsaminatzaileari** askatasun osoa ematea, horrela oztoporik gabe bere interesa bilatu ahal dezan. Ibon Uribarri

Ezer ez da hain garrantzitsua onurari dagokionez, ezer ez da hain sakratua, non pertsonaren autoritaterik ezagutzen ez duen bilaketa **etsaminatzaile** eta aztertzailea saihets dezakeela. Ibon Uribarri

3 (izenondo gisa)

Onuragarria da ezbairik gabe arrazoimen ikertzaileari eta **etsaminatzaileari** askatasun osoa ematea, horrela oztoporik gabe bere interesa bilatu ahal dezan. Ibon Uribarri

---

etse ik **etxe**.

---

etsenplu (otobat **exenplu** g.er.) **1** *iz* jarraibidea, eredua.

"Giza eskubideen borreroak" eta gisa horretako bidegabekeriak politikarien ahotan entzuten dira gehien, eurak izan behar luketenean hizkera eta jokaera politikoki zuzenaren paradigma eta **etsenplu**. Karlos Linazasoro

Zer **etsenplua** guretzat! Herria

Nola lortu, azkenik, beraien biziera eta jokabidea, bertute santuetan haziz, lagun hurkoentzat **etsenplu** izatea? Askoren artean

Betiko dotorezia eta elegantzia edireiten baitiot, neuretzat anitzetan amestu izan dudan prosaren **etsenplu** eta jarraibide. Joan Mari Irigoien

Harengan **etsenplua** hartzen saiatu nintzen: burua apal eta sorbaldak makur egon zen denbora hartan guztian. Joxan Elosegi

Nik **exenplua** eman dizuet, nik egina zuek ere egiteko. Patxi Altuna

Lanbiderik ez dakitenek ikas dezatela, ez lansaria jasotzeko gutiziaz, **etsenplua** emateko eta alferkeria uxatzeko baizik. Askoren artean

Haragizko tentaldien kontrako **etsenplu** bat. Askoren artean

Hiri nausiaren **etsenplua** segitu dute baserrietako hirietan ere. Herria

Hau seinale izango da zuretzat, Jainkoak nire bitartez zuri, nire **etsenpluari** jarraiki, nire Elkartean sartu zinen horri, osasun betea eman dizun seinale. Askoren artean

Hiri nausiaren **etsenplua** segitu dute baserrietako hirietan ere. Herria

Nahiz Eriksonek **exenplurik** ez jarri -baztertutako testuen **exenplurik**, esan nahi dut-, lan hori neronek hartu eta hitzaldia osatzea erabaki nuen, **exenpluak** ondo etortzen baitira beti. Bernardo Atxaga

Nire heriotzako eguna arte ez dut etsiko, **etsenpluaren** eta egite onen bidez, anaiei Jaunak erakutsi zidan bidetik ibiltzen irakasten. Askoren artean

Heroi eta martirien **etsenpluaren** bidetik. Joan Mari Irigoien

Imajina al daiteke, **etsenpluen** liburuetan edo literaturako fikzioan bada ere, errege errepublikazalerik? J.M. Olaizola "Txiliku"

Gizon santuen **etsenpluek** atsegin galkorren mespretxua sortzen dute entzule debotoen bihotzean eta betiko salbamenaren desira pizten. Askoren artean

Jainkoaren Semea bide egin zaigu, eta bide hori bere hitzez eta **etsenpluz** azaldu eta erakutsi digu geure aita Frantzisko dohatsuak. Berria - Euskal Herria

Erregela santua gordez, hitzez baino gehiago **etsenpluz**, jende guztia onbidean eraikitzea. Askoren artean

Dena den horren joerak badu **etsenpluzko** balioa: [...]. Herria

Etsenpluetatik ikas dezagun. Juan Martin Elexpuru

2 (izenondoekin)

Anaiei **etsenplu** ona ematearren eta Dama Pobretasunaren bikaintasun eta duintasunagatik, bazkalorduan limosna bila joaten zen. Askoren artean

Etsenplu onak izan ditzagula beti aipagarri! Herria

Bere grazia eman baitzien norberaren mespretxuaz beren burua menperatzeko eta Kristoren ardiak **etsenplu** onaz zuzenbidean jartzeko. Askoren artean

Zeren apaltasun handiagoa eta **etsenplu** hobea baita predikatzera beste elizatara joatea. Askoren artean

Bidarraiko afera, minberatsua balinbada ere tokiko jendeentzat, **etsenplu** argia eta beharrezkoa izan da denentzat. Herria

Etsenplu ederra da nahi bada ikasi. Herria

Giza maila guztietako pertsonek, gizonezko eta emakumezko, zahar eta gazte, denek dituzte harengan doktrina salbagarriaren adibide argiak, jokabide santuaren **etsenplu** bikainak. Askoren artean

Horrelakoak hiltzaileak dira, arima asko eramaten baitituzte hondamendira beren **etsenplu** txarrez. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nahiz eta prelatuek gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasun **etsenplurik** ematen ez badute, ezer gutxi lagunduko didate niri, ezertxo ere ez beren buruari. Askoren artean

Zaniren baitan sorkuntza **etsenplu** bat dugu; umoristaren baitan, transmisioarena. Xabier Olarra

Santua pozez gainezka jartzen zen horrelakoetan, semeek beren aldetik santutasun-**etsenpluak** ematen zituztela entzutean. Askoren artean

Beste erlijiosoei baino gehiago eragin behar digute guri Jainkoaren Semearen pobretasun-**etsenpluek**. Askoren artean

Zu izan baitzara Ordena honetan lehen seme aukeratua, ebanjelio-**etsenplua** emateko, Jesu Kristori ebanjelio-pobretasunean jarraitzeko. Askoren artean

4 adibidea.

Nahi baduzu, **etsenplu** baten bidez emanen dizkizut argibideak. Joan Mari Irigoien

Hona hemen grezieratik harturiko **etsenplu** batzuk, non bi mailen "legeak" nahita nahasturik agertzen baitira: [...]. Isabel Arrigain

Etsenplu hau jarri dizuet, esanak esan, irituziak iritzi, irakurketaren zabalkundea, herritartzea delako XX. mendean gauzatu den iraultzarik handiena. Pako Aristi

Kondatzen digu igandekari ihizira joan zen bi gazteen **etsenplua**. Xipri Arbelbide

Hona elgarren arteko laguntza baten **etsenplua**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Etsenplu batekin hobeki ulertuko didak, benturaz: pentsa ezak ezen badoala karrikatik emazteki eder bat, eta haren aitzinean bi gizon iragaiten direla, [...]. Joan Mari Irigoien

Lehen erako alegoria profetiko horietako **etsenplu** bat honako pasarte honetan aurkitzen da: [...]. Xabier Kintana

Zein bakan baliatzen diren ikusirik, ezezaguntzat jo litezkeen bi egia garrantzitsuren froga eta **etsenplua** ere kausituko da gutunotan. Jon Muñoz

Joera hauen **etsenpluak** milaka aurki daitezke azken urteotako egunkarietan. Bernardo Atxaga

Baldin Valmont jauna ez balitz, zuk diozun bezala, harremanen arriskuaren **etsenplu** bat baizik, bera ez litzateke orobat harreman arriskutsu bat? Jon Muñoz

Hik nahi baduk, **etsenplu** batekin ilustratuko diat erran nahi diadana. Joan Mari Irigoien

Horri buruzko **etsenpluak** ugariak dira. Xabier Kintana

Etsenplu bat kontatuko dizut eta haren ondoreak ere kontatuko dizkizut. Joan Mari Irigoien

Homeroren garaikideak endekatze **etsenplu** harrigarriak ziren: hamar behar ziren harkaitz bat jaso edo istilu bati hasiera emateko. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anaiei etsenplu ona (6); **baino gehiago etsenpluz** (4); **bere etsenpluaz** (4); **beren etsenplu** (7); **beren etsenplu txarrez** (3); **bertze etsenplu** (3); **bertze etsenplu bat** (3); **besteei etsenplu** (4); **beti etsenplu** (4); **beti etsenplu ona** (4); **eta besteei etsenplu** (4); **eta etsenplu** (25); **eta etsenplu izatea** (3); **eta etsenplu onari** (4); **eta etsenpluak** (4); **eta etsenplutzat** (3); **eta etsenpluz** (25); **eta etsenpluz azaldu** (3); **etsenplu bat** (20); **etsenplu baten** (3); **etsenplu batzuk** (5); **etsenplu eder** (3); **etsenplu ederra** (12); **etsenplu ematea** (4); **etsenplu ere** (3); **etsenplu eta** (12); **etsenplu gisa** (5); **etsenplu handia** (3); **etsenplu hobea** (3); **etsenplu izan** (3); **etsenplu izatea** (4); **etsenplu izatea nahi** (3); **etsenplu ona** (29); **etsenplu ona eman** (4); **etsenplu ona emanez** (3); **etsenplu ona ematearren** (3); **etsenplu ona ematera** (5); **etsenplu onak** (3); **etsenplu onari** (6); **etsenplu onik** (4); **etsenplu txarra** (13); **etsenplu txarra ematen** (3); **etsenplu txarragatik** (3); **etsenplu txarrak** (3); **etsenplu txarrez** (7); **etsenplu xoil** (3); **etsenplu xoil bat** (3); **etsenpluak eta** (3); **etsenpluari jarraituz** (10); **etsenpluaz eta** (3); **etsenpluen bidez** (3); **etsenpluen liburu** (4); **etsenpluz azaldu** (3); **etsenpluz eta** (7); **gehiago etsenpluz** (4); **haren etsenpluari** (5); **haren etsenpluari jarraituz** (5); **haren etsenpluaz** (3); **hitzez eta etsenpluz** (18); **huna etsenplu** (3); **nire etsenpluari** (3); **zer etsenplu** (4); **zer etsenplu ederra** (4)

---

etsi, etsi, etsitzen *(orobat **etsitu** g.er.)* **1** du *ad* norbaitek zerbaiten itxaropena galdu, dagoen bezala gelditzea onartuz, amore emanez, bertan behera utziz edo hartara ohituz.

Baina lerro batzuk idatzi orduko, **etsi** egiten nuen. Anjel Lertxundi

Pittin batez egin dit tira uhaletik hasieran; baina berehala **etsi** du, eta txintxo-txintxo etxeraino lagundu. Txillardegi

«Gure politikak ez du eraginik izan», **etsi** du taldeak. Berria - Mundua

-Ondo da, ondo da... -**etsi** zuen Lauaxetak, eta zutitu egin zen bera ere-. Juan Luis Zabala

-Ez **etsi**, On Camillo, eta lortuko duzu. Koldo Biguri

Ezin **etsi** duk, hasi baino lehen. Joan Mari Irigoien

Nik, arropa nahi dudanean, Zara-koarekin **etsi** behar izaten dut. Antton Olano

Besteen hondarrarekin **etsi** behar, bada. Karlos Zabala

Etsi beharra zaukaagu garenarekin, hori duk sekretua, sekretu bakarra. Xabier Olarra

Zeren etengabe egin behar baitugu otoitz, inoiz **etsi** gabe. Askoren artean

Ezagutzen zutenek langile trebe eta azkartzat zeukaten, kementsu eta nolanahi **etsitzen** ez zuena laneko eginbeharretan. Xabier Olarra

Iruainen errazagoa zitzaidan ahaztea, **etsitzea**. Bernardo Atxaga

Bakea ez da **etsitzea** edo edozein xantaia motaren aurrean amore ematea. Berria - Euskal Herria

Ez da ona malenkonian **etsitzea**. Joxan Elosegi

Asko kostatu zitzaion Mariari AEBtan **etsitzea**, baina lortu zuen. Berria - Kirola

Denak ala denak ere ados agertu ziren, eta lapurren lapurra topatu arte ez **etsitzea** erabaki zuten. Patxi Zubizarreta

Beste edozein tokitan ez bezala, hiri honetan ezinezkoa da erantzungailu automatikorik gabe **etsitzea**.- Zaila egiten zait zu gabe bizi behar dudala **etsitzea** -esan zuen neskatxak. Harkaitz Cano

Gudari kementsua zela Frantzisko eta une batez ere ez zuela borrokan **etsitzen**. Askoren artean

Willy Eisnerrek ezin zuen bulegoan **etsi**. Anton Garikano

Ezin **etsi** dugu ezjakinean, garbiro jakin behar ditugu gauzak, eta gauzen izenak. Iñaki Segurola

Mutil egoskorra da eta helburu bat duenean nekez **etsitzen** du. Berria - Kirola

Athleticek ez zuen **etsitzen** eta gogo eta kemena jartzen zuen jokaldi bakoitzean. Berria - Kirola

Etsitzen hasia nintzen baliozko daturik ez nuela lortuko. Aingeru Epaltza

Iheslariak, neka-neka eginda, **etsitzen** ari ziren nabarmen. Karlos Zabala

Lehenbizi ohean **etsitzen** ikasi zuen tximinoak, artean zeharo beratu gabeko tximino hark, ikaragarrizko desengainua hartu zuen bere egoitza eta izantza berri hartan. Iñaki Segurola

Etsitzen jakite bat baita zoriontasun deklaratua. Iñaki Segurola

Gero eta gutxiago **etsitzen** nian neska hura ikusi gabe, edozein unetan nik hari musu eman nahi-eta. Pako Aristi

Hurko baten hil-ezkilak geure barrunbean joka dauzkagunean, lehentxeago edo geroxeago, **etsi** beharra dago, erotuko ez bagara; baina zerk ekarriko gaitu herstura horretan **etsitzera**?, zein izango da gure etsigarria? Iñaki Segurola

Jokalariak nahiko atsekabetuta daudela baina **etsitzeko** asmorik ez dutela gaineratu zuen. Berria - Kirola

Horrek **etsi** edo indartu egiten zaitu? Berria - Kirola

Ezin **etsi** ikusi gabe, ezin **etsi** ukitu gabe. Iñaki Segurola

Ezin izan zuen **etsi** hirian. Anton Garikano

Pontito gabe ezin zuen **etsi** -esan zidan Francoren arrebak-. Xabier Olarra

Ez du adorea galduko, ez **etsiko**, lurrean justizia ezarri arte. Elizen arteko biblia

Pozik gabeko lur batean bizi da Maria Luisa, baina, hala eta guztiz ere, ez omen luke **etsiko** herri-barne batean, ezta dena hutsean emanen baliote ere. Iñaki Segurola

Armaz ez bazen gosez **etsiko** genuelakoan, ziudadelaren inguruan uztaia hertsatu zuen Terridek, bizigailu bakar bat ere etor ez zedin gure eskuetara. Aingeru Epaltza

Etsipenean **etsia**, barne oinazean gogortua, sortua. Txillardegi

Etsia itzuli den bidariaren antzo, hark bezala onartuko dut ezen zoriona utzi nuela esperantzaren bila joateko. Jon Muñoz

2 (era burutua izenondo gisa)

Eri **etsia** omen da. Jon Muñoz

Irrika bizi bat, maitatua izateko irrika, bizimodu hits hartatik libratuko zuen maitasun baten erregu **etsia**. Alberto Ladron Arana

Irri **etsi** bat marraztu zen haren ezpainetan. Joan Mari Irigoien

Hasperen egin eta apur batean sentitu zuen amorru **etsi** bat pizten zitzaiola, eta gero min arin, erdiragarri bat. Anton Garikano

Heurea huen guztia niri ez erakustea onartu nian, miresten nian hire argitasuna, higandik isurtzen zen gehiago-izate bitxi eta **etsia**. Xabier Olarra

Baserrietan kurrinka **etsi** lazgarriak entzuten ziren etengabe bezperan. Txillardegi

Hurbilagotik, arestian baino nabarmenagoa du begitarte galdu, **etsi** eta eri antza. Aingeru Epaltza

"Harreman arriskutsuak" beraz militar **etsi** eta gogaitu baten obra handinahia da, 1782an argitaratua. Jon Muñoz

Pedroren hitz **etsi** haiek osaba mindu zuten. Joan Mari Irigoien

Bertze mahaiko saltzaile ustezkoari begiratu makur bat egin eta oniritzi **etsia** eman nion menestrari. Aingeru Epaltza

Hitzak keinu **etsi** batez laguntzen zituela, lehor baino lehorrago ihardets ziezadakeen orduan osabak: [...]. Joan Mari Irigoien

Mugimendu feministak oso jarrera **etsia** hartu izan du prostituzioaren aurrean. Berria - Euskal Herria

Mendebaldeko ongizate **etsia** edo ongi-bizitze irudipenezkoa bezala. Iñaki Segurola

1987an, Ruth, tragikoki, gaixotu, eta, minbiziarekin borroka **etsian** ahitu ondoren, hil egin zen. Xabier Olarra

Azken ahalegin **etsian**, Frodok, eskuen gainean arrastaka, hogei bat yarda aurreratu zituen. Agustin Otsoa

Ene aitzinean akabatu zuten oreinaren bi begi **etsi** haiek etorri baitzitzaizkidan gogorat. Joan Mari Irigoien

Beuuuurk barnakor eta **etsia** eskapatu zitzaion, bihotzaren barne-barnetik. Itxaro Borda

Bakarrizketa **etsiago** bat jarraitu zitzaion lehen hasperen hari. Bernardo Atxaga

Badakit badela pesimismo modu bat ("onenak emanda gatxaudek, eta txarrenak hartzeko" dioenarena, adibidez), esperantzadun optimismo **etsiaren** aldean, beste sanidade bat adierazten duena edo dakarrena, beste grazia bat, indar bat. Iñaki Segurola

Alkoholaren berotik sortutako ausardia **etsiarekin**. Pako Aristi

3 (era burutua izen gisa)

Sobera nekatu gabe eman zidaten **etsia**. Aingeru Epaltza

Gehiago: norbaiti **etsia** edo etsipena eman badiote, eta ez badu jaun medikuak bere hitzean asko erratu, uste izateko da luza gabe norbait horren hurkoei doluminak eman beharrean aurkituko direla bat baino gehiago. Iñaki Segurola

Horra pentsatzeari eta pentsamenduari **etsi** bat eman, etsipena eman: "hauxe eta kito". Iñaki Segurola

Honezkero **etsiak** jota egon behar huke ez dugula heriok soilik ematen duen atsedenik lortuko geure hezurretan -esan zuen aitak, ezpaina ezpainaren kontra. Anjel Lertxundi

Edwinek, ostera, **etsi** onean hartuko du erabakia. Joseba Sarrionandia

Gatiburen batek ihesari eman ziezaiokeen, ausardiaz edo **etsi** gaiztoz, eta zainketa neurri gogorrak hartu beharrean zeuden aurrena. Karlos Zabala

Hara nola dudan nik aita noble bat galdua; arreba bat **etsi** gaiztora amildua. Juan Garzia

Edo biziaren predikatzaile bioenergetikoen gisa hasten gara ("bizia indar sortzaile bat da, askea, ederra, zoragarria, indartsua, gihartsua, geldiezina..."), edo bestela, **etsi** beltzean. Iñaki Segurola

Behartsua eta jeniala zen Abel, benetako erromantikoa, esan genezake; hainbesteraino, non zintzoa eta **etsi** onekoa baitzen, eta sentipen zeharo arrotza zitzaion matxinatzea. Jon Muñoz

Henrique zalduna **etsiak** jota gelditu zen, burua galdurik, galtzeko puntuan ikusten baitzuen bere ingenioaren erakusketa zoragarria behar zuena. Jon Alonso

Etsiak jorik, eguzki sutsuaren azpian eseri zen, eta, ongi jakinki bera inguratzen zuen hareatza gorizko zabaltasun hura infinitua zela, soingainekoan bildu burua, eta heriotzaren zain geratu zen. Juan Garzia

Beldur nintzateke Bellerocheren eta nire artean hark zer edo zer sumatuko ote, eta **etsiak** hartuko ninduke gertatzen ari denaz den gutxiena ere jakitera helduko balitz. Jon Muñoz

Etsiak hartuta zegoen Nora, bizitzan lehendabiziko aldiz emandako aurrerapauso ausart hark ez zuela etekinik izango sinetsirik. Anjel Lertxundi

Desertua leku berezia da, eta hara erretiratzen ziren antzinako denboretan munduaz aparte -gizarteaz, hiriaz aparte- bizi nahi zuten guztiak, hala anakoretak nola epailearen beldur ziren gaizkileak edo maitasun dezepzio bat jasan eta bakardade gorrian murgiltzeko promesa egindako **etsiak**. Bernardo Atxaga

Erruki **etsientzat**! Josu Zabaleta

4 (era burutua hitz elkartuetan)

Andrea dantzara joan zen, eta handik itzulitakoan negarrez hasi zen, **etsi**-itxurak eginez. Josu Zabaleta

Hau duk **etsi**-hotsa darabilguna! Iñaki Segurola

Etsipen horrek, **etsi**-behar horrek. Iñaki Segurola

Bateko etsitze, besteko **etsi**-behar, etsipen eta destitxa! Iñaki Segurola

Galera, zapuzte eta **etsi**-behar baten umeak gara. Iñaki Segurola

Etsi-gauzaren kontra jardun bai erruz, baina ez naiz ba ibiliko neu ere oharkabean, giza zomorro guztiak bezalaxe, etsigarri baten bila? Iñaki Segurola

5 ***etsia hartu*** kaltegarria edo negatiboa dena onartu, hari aurre egin gabe; itxaropena galdu.

Gogoz ez baina, behartua zegoela ikusirik, **etsia hartu** eta hartara makurtu zen, bihotzean min eta urdailean neke. Patxi Ezkiaga

-Ez dut beste aukerarik, ezta? - **etsia** hartu zuen. Migel Angel Mintegi

Etsia hartu nian: hori zuan nire etorkizuna, ez nian alferrikako ametsik egiten. Anjel Lertxundi

Nagusiak Janson jotzen zuen, zaldia jotzen zuelako, baina azkenean **etsia hartu** zuen, ezinezkoa baitzen hura zentzaraztea. -Ez zagok zer eginik, **etsia hartu** besterik. Jose Morales

-Ez dut beste aukerarik, ezta? - **etsia hartu** zuen. Migel Angel Mintegi

-Ezer berezirik ez, esan dizut, nik dakidala behintzat, ziur nago -azken ahalegina egin zuen **etsia hartu** aurretik. Migel Angel Mintegi

-Ez zagok zer eginik, **etsia hartu** besterik. Juan Kruz Igerabide

Gordeleku hartan jarraitu nuen, beraz, harik eta bozgorailu hark nitaz **etsia hartua** zuela iruditu zitzaidan arte, beste hamar bat minutu bai, gutxienez. Joxe Austin Arrieta

Tomek hogeita hamar urte zeuzkan, gizon gisa adinaren lorean zegoen, eta, hala ere, emakumeen eta maitasunaren kontuaz den bezainbatean, ia-ia **etsia** hartua zuen. Oskar Arana

Etsia hartua nuen bizkarreko irudi haiek neure mundualdiaren zati nituela, eta mundu osoan zehar garraiatu behar nituela, harrotasun gutxirekin bazen ere. Javi Cillero

Etsia hartu beharrean, ez bat eta ez bi, senarraren soinekoak eta haren durbantea jantzi, eta dendatik irten zen. Patxi Zubizarreta

Etsia hartuta nago, hemen ez dago politikorik, bestela kontakturen bat egina behar zidaten honezkero. Koldo Izagirre

Arrapaladan abiatu nintzen beherantz, dagoeneko **etsia harturik** han behean jende-multzoa aurkituko nuela, anbulantzia, odola, polizia, alegia atxilotu egingo nindutela. Joxe Austin Arrieta

Berrogeita hamar urterekin ez zuen zertan **etsia harturik** : oraindik beste hamar bat bazituen, izan ere. Patxi Zubizarreta

Zerbaitetan ari delako eta zerbait gertatzen ari delako irudipenari horrelaxe eusten dio zahar-etxeko, eri-etxeko edo ero-etxeko biztanleak eta **etsia hartutako** edo nazkamen kosmikoak harrapatutako pertsonak ere. Iñaki Segurola

Haren borondatea bizia zen eta tematia, eta haren lasaitasuna asaldakaitza, baita gizon bat **etsia hartzeko** zorian edo odolak irakin beharrean jarriko zuten egoeretan ere. Karlos Zabala

Horra, orduantxe **etsia hartu** zuen, burua galdu eta arrunt erotua zegoela bere nagusia. Patxi Ezkiaga

Etsia harturik , gogo-erorita eta gaixorik, bigarren tomoaren eskuizkribua erre zuen. Jose Morales

Aizkolariek ez dute laguntza handirik jasotzen, eta norberak bere patrikatik dirua jartzen hasteak, azkenean **etsia hartzea** eragiten du. Berria - Kirola

· Ezinbestean, **etsi** bat **hartu** nuen, bi asteren epea ez dela halere hain luzea, luze iduri badu ere. Janbattitt Dirassar

Baionako auzapezak erakusterat eman du **etsi** bat **hartzen** ahal ginukeela oraikoan: behin ezkerreko gobernu batek eza emana eta orai eskuineko batek gauza bera, ez dugula ibili behar behinere ukanen ez dugunaren ondotik. Herria

Haurrek **etsiak** hartuta ziruditen, baina ez erabat adoregabetuta. Mirentxu Larrañaga

Zer uste dute bestenaz Madrilen? Alderdi baten debekatzea aski dela bakearen segurtatzeko? Batasunaren aldekoek **etsi** bat hartuko dutela gisa hortako debekuak arrunt durduzaturik? Piarres Aintziart

6 *etsi etsian* adlag

Eta orduan teologo gutarrak **etsi-etsian** azken helduleku baten bila doaz: ortzeguna -diote- nolaz uka "Ortziren eguna" dela?, edo Iouis diesen paretsuko zerbait bederen? Iñaki Segurola

Pepponek gehiago ezin jasan eta, abadetxoa hizketan hasi baino lehen, taldetik aldendu, **etsi-etsian** eskuinalderantz joan, kandela handia hartu, ezkerrera eraman eta lehenagoko toki berean utzi zuen, baranda aurreko bigarren mailan. Koldo Biguri

Etsi-behar batek esanarazten du **etsi-etsian** : "bai, zoriontsu naiz". Iñaki Segurola

Negarrez jarraitzen zuen, **etsi-etsian** , eta bazihoan, gelditu egiten zen, bazihoan berriro, antsiarik gabe, xirripa bat hondarrean zehar bezala, erreten bat zabalduz gelaren ilunpean, gauaren isiltasunean. Bernardo Atxaga

Zaude **etsi-etsian** , maisu, zuk esanaz edo idatziaz bestera direla gauzak. Iñaki Segurola

-Oraintxe bertan isiltzen ez bazarete, bioi berotuko dizuet bizkarra! -esan zuen **etsi-etsian** . Koldo Biguri

Haren morroia ate aurrean zegoen, negar eta negar, bere onetatik aterata **etsi-etsian** . Josu Zabaleta

7 *etsi-ezin* iz ezin etsia.

Ohean jotzen dugun bakoitzean lehenbiziko tximino ohatuaren desengainua eta oroimina berritzen ditugu, eta gizatasun irabazi berriak eman zion nahigabea, etsipena eta **etsi** -ezina. Iñaki Segurola

8 *etsita* adlag

Kontuak kontu, Ingalaterrara itzuli zen 1589. urtean, pobre, **etsita** eta zitalduta. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jendea lur jota eta **etsita** dago. Berria - Gaiak

Gaitza hain larria zenez, mediku-sendabideez **etsita** zegoen. Askoren artean

Etsita zegoen ezingo zuela bozkarioa isilean gorde. Anjel Lertxundi

Eman nion sua, nahiz eta **etsia** egon gazteegia zela, hogei urteko ume-mokoa. Joxe Austin Arrieta

Etxeari su eman behar ziotela **etsita** zegoelako bidali zizun liburutegia. atzera portura itzuli dira 'Oskarbi' ontziko arrantzaleak, **etsita** eta arrain faltarekin kezkatuta. Jon Muñoz

Denak haren zoriaz **etsita** zeudela, Frantzisko dohatsuaren izenari egin zioten dei eta berehala sendatu zen. Askoren artean

Haserre eta **etsita** , Navaleko langileek berriro suzko barrikadak jarri zituzten atzo ontziolaren ondoan. Berria - Ekonomia

Nekatuta eta lur jota, **etsita** . Mirentxu Larrañaga

Zeharo **etsita** , Zarautz aldera bueltatu behar soinurik gabe. Xabier Etxabe

Kanpoan lo egitera **etsia** , etzaleku baten bila nenbilela, lau emakume bistatu nituen, bat erratz gainean, beste bat haizemaile baten gainean. Patxi Zubizarreta

Neskatxak, **etsirik** , jauzi egin zuen putzu zulorat eta ito. Gotzon Garate

Edale jendea beti aiher izaten den amilbide baratz horietako batera **etsirik** -edaten ez dutenek ez dute inoiz ulertuko!- Andreas berriz Sena bazterrera joan zen, zubipe batera. Matías Mujika

Etsirik geunden ikusi ahal izateak erabateko desilusioa sortu ziola Virgili. Xabier Olarra

Ihesbiderik eta itzurpiderik gabe, tristeturik eta **etsirik** , pentsakor. Joan Mari Irigoien

Ezin nagoke zuri halaber erran gabe ezen Tourvel andrea arras dolutzen zaidala; ezen **etsi etsirik** nagoela harengandik bereizirik egon beharrez. Jon Muñoz

Bakea ez da **etsitzea** edo edozein xantaia motaren aurrean amore ematea. Berria - Euskal Herria

Joera ahulenak porrotean **etsitzeari** uko egin eta jarrera horretan irauteak esplikatzen ditu topaketaren errepikapenak ziklo-serie batean. Iñaki Mendiguren

Baina gorra, garunez gorra, **etsitzeraino** ere, ordea, gorra! Josu Zabaleta

Etsi samar sumatu genuen goizuetarra ere. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurrean etsi (4); **azkenean etsi** (4); **baina etsi** (11); **baina etsi egin** (4); **baina ez etsi** (3); **bat etsi** (3); **berehala etsi** (9); **berehala etsi du** (3); **du etsi** (21); **dugu etsi** (10); **dut etsi** (8); **dute etsi** (8); **dute etsi nahi** (4); **edo etsi** (3); **ere etsi** (4); **erraz etsi** (5); **eta etsi** (47); **eta etsi behar** (6); **eta etsi egin** (4); **eta etsi etsian** (13); **eta ez etsi** (4); **etsi bat** (51); **etsi bat bezala** (4); **etsi bat egin** (4); **etsi bat hartu** (10); **etsi bat hartua** (4); **etsi bat hartuko** (3); **etsi bat harturik** (3); **etsi batean** (3); **etsi baten** (3); **etsi batez** (5); **etsi behar** (50); **etsi behar izan** (20); **etsi beharko** (10); **etsi beharra** (9); **etsi beharrean** (7); **etsi du** (6); **etsi dut** (3); **etsi dute** (3); **etsi edo** (3); **etsi egin** (61); **etsi egin behar** (14); **etsi egin beharko** (4); **etsi egin du** (6); **etsi egin nuen** (3); **etsi egin zuen** (21); **etsi egin zuten** (6); **etsi eginda** (3); **etsi egingo** (5); **etsi egiten** (10); **etsi egiten dute** (3); **etsi ere** (4); **etsi eta** (35); **etsi etsi** (4); **etsi etsia** (3); **etsi etsian** (95); **etsi etsirik** (7); **etsi etsita** (3); **etsi ez** (15); **etsi ezinik** (4); **etsi gabe** (29); **etsi gaiztoan** (3); **etsi haiek** (3); **etsi hura** (4); **etsi izan** (3); **etsi nahi** (27); **etsi nahi eta** (3); **etsi nuen** (13); **etsi onean** (3); **etsi samar** (4); **etsi samarra** (3); **etsi zuen** (21); **etsi zuenean** (5); **etsi zuten** (9); **ez du etsi** (13); **ez dut etsi** (5); **ez dute etsi** (7); **ez etsi** (68); **ez nuen etsi** (9); **ez zuen etsi** (53); **ez zuten etsi** (18); **ezin du etsi** (3); **ezin dugu etsi** (7); **ezin etsi** (23); **ezin etsi eta** (4); **gabe etsi** (3); **gabe ezin etsi** (3); **hain erraz etsi** (3); **horrek etsi** (3); **horrekin etsi** (3); **inoiz etsi** (9); **inoiz etsi gabe** (4); **irri etsi** (14); **irri etsi bat** (10); **keinu etsi** (5); **keinu etsi bat** (3); **laster etsi** (3); **nola etsi** (3); **nuela etsi** (3); **nuen etsi** (11); **nuen etsi nahi** (4); **zuela etsi** (6); **zuen etsi** (57); **zuen etsi eta** (6); **zuen etsi nahi** (7); **zuten etsi** (19)

ahalegin etsia (5); **ahalegin etsian** (3); **apur bat etsita** (4); **arrunt etsita** (3); **arte etsiko** (3); **baina etsita** (6); **bat etsita** (5); **da etsitzeko** (3); **du etsiko** (13); **du etsitzen** (10); **duela etsiko** (9); **dugu etsiko** (16); **dut etsiko** (14); **dute etsiko** (6); **dute etsitzen** (8); **edo etsita** (4); **erabat etsirik** (3); **erabat etsita** (9); **erdi etsita** (3); **ere etsita** (3);

erraz etsiko (3); **eta etsi etsian** (13); **eta etsia** (10); **eta etsiago** (7); **eta etsiak** (8); **eta etsirik** (4); **eta etsita** (27); **eta etsitzen** (7); **etsi etsia** (3); **etsi etsian** (95); **etsi etsirik** (7); **etsi etsita** (3); **etsia da** (5); **etsia edo** (3); **etsia egin** (3); **etsia eman** (3); **etsia eta** (6); **etsia hartu** (21); **etsia hartu eta** (3); **etsia hartu zuen** (6); **etsia hartua** (8); **etsia harturik** (9); **etsia hartuta** (6); **etsia hartzen** (4); **etsia hartzen dute** (3); **etsiak hartu** (3); **etsiak hartua** (4); **etsiak harturik** (11); **etsiak hartuta** (11); **etsiak hartuta zegoen** (3); **etsiak hartzen** (3); **etsiak jo** (3); **etsiak jota** (14); **etsiko eta** (10); **etsirik zegoen** (4); **etsita agertu** (10); **etsita agertu zen** (7); **etsita amaitu** (3); **etsita bizi** (3); **etsita dago** (12); **etsita daude** (7); **etsita daudela** (5); **etsita egon** (8); **etsita egon behar** (5); **etsita ere** (4); **etsita eta** (18); **etsita gaude** (6); **etsita ikusten** (3); **etsita nago** (9); **etsita nengoela** (4); **etsita nengoen** (8); **etsita zegoela** (3); **etsita zegoelako** (3); **etsita zegoen** (16); **etsita zeuden** (6); **etsitzea erabaki** (3); **etsitzea erabaki zuten** (3); **etsitzeko asmorik** (5); **etsitzeko momentua** (3); **etsitzeko prest** (3); **etsitzen du** (4); **etsitzen eta** (3); **etsitzen ez** (7); **etsitzen halere** (3); **etsitzen hasia** (6); **etsitzen hasiak** (4); **etsitzen hasita** (11); **etsitzen hasita zegoen** (3); **etsitzen zuen** (3); **ez da etsitzeko** (3); **ez du etsiko** (13); **ez du etsitzen** (10); **ez duela etsiko** (9); **ez dugu etsiko** (16); **ez dut etsiko** (14); **ez dute etsiko** (6); **ez dute etsitzen** (8); **ez etsitzea** (5); **ez etsitzeko** (8); **ez nuela etsiko** (4); **ez zuen etsitzen** (8); **gabe etsitzen** (4); **gero eta etsiago** (4); **guztiz etsita** (10); **hain etsita** (3); **haserre eta etsita** (4); **ia etsirik** (3); **ia etsita** (4); **irri etsia** (3); **jota eta etsita** (3); **min etsia** (7); **nola etsiko** (3); **nuela etsiko** (4); **triste eta etsita** (3); **zeharo etsita** (5); **zioen etsita** (3); **zuen etsita** (6); **zuen etsitzen** (8)

eta etsitua (3); **eta etsiturik** (4); **etsitu bat** (4); **etsitu batez** (3); **etsitu behar** (9); **etsitu eta** (7); **etsitu gabe** (14); **etsitu gabe eta** (3); **etsitua eta** (4); **etsiturik eta** (3); **ez etsitu** (3); **sekulan etsitu** (7); **sekulan etsitu gabe** (4)

---

etsialdi *iz* etsipenezko aldia.

Dudarik gabe, ez zara buru-arina, ezta engainaria ere; eta **etsialdi** honetan berean ere, laidozko susmo batek ez du nire arima ximelduko. Jon Muñoz

Beste alde batetik, mundu pribatu bat, berezia: ikerkuntzarena; bere grinak, bere pozaldi eta bere **etsialdiak** dituen mundu bat; zerura igoaraz zein infernuetara jaitsaraz zaitzakeen mundu bat. Juan Garzia

Irakurri berria zuen Kaliforniako unibertsitate baten ikerketa sakona egina zutela eta psikiatrek **etsialdi** (depression) handiak izaten dituztela. Gotzon Garate

Etsialdi etsian luzaroan bizi izan ondoren, bizkorgarri gertatu ziren gure artean Mendizorrozko gatazkaren emaitzak. Txillardegi

Etsialdian oroit da bereber aipuaz -Herioa, bizi-nahiaren dantzan zoratuz tronpa daiteke soilik...-. alkoholak **etsialditik** ateratzeko izan zezakeen indar apurra kendu zion. Jose Angel Irigaray

Eta nire **etsialdiaren** gorenean nengoela, xuxurlaka adierazi dit badela hitzik behar ez duen elkartasun bat gorputz-ondare bera gozatzen dugunon artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Irene haserrearen eta **etsialdiaren** artean zegoen. Fernando Morillo

---

etsiarazi, etsiaraz, etsiarazten du *ad* etsitzera behartu.

Nola etsiko dut nik, nola **etsiaraziko** dizut esaten ari naizen egiaz? Jon Muñoz

Ahalegin batzuen ondoren, lortu zuten hartaz **etsiaraztea** sobietar agintariak. Juan Garzia

Huts egindako aukerek ez zioten, nolanahi ere, erabat **etsiarazi**. Juan Luis Zabala

Jauna dut laguntzaile: horregatik ez didate irainek **etsiarazten**. Elizen arteko biblia

Buruan zerbait sartzen bazaie, ez dago **etsiarazteko** modurik. Jose Morales

Hara orduko, ilunduko zaizue - **etsiarazi** nahi izan nituen, aitak emandako aitzakia guztiz nabarmen utzi gabe. Anjel Lertxundi

Arrazoi horiek ez didate **etsiarazi**, eta iruditu zaizkit, oraino iruditzen zaizkidan bezala, errazagoak ematen, ezen ez onartzen; ez nintzen ni ordea nagusia, eta men egin diot. Jon Muñoz

Eta haren arkitektoek **etsiarazi** nahi izan ziguten ez zegoela batere neurri komunik piramide horren eta gure artean! Jon Muñoz

Amodio hori **etsiaraz** zenezake, ez duzu ordea suntsitzen ahalko. Jon Muñoz

Berari egokitu zaizkion alde eta aldi haietatik kanpora (omen!) dagoen ilunpe miseriazkoaren beldur paranoikoak **etsiarazten** dio bere ongizatezko putzu agorrean. Iñaki Segurola

Ezinezkoa da asmatzea zer pentsatu zuen edo zer egin zuen hogeita hamar urte bete zituen arte, zein izan ziren haren jainkotasun artean agerigabearen sintomak, nola **etsiarazi** zion bere buruari errege izateko sortua zela. Juan Garzia

Nola **etsiarazi** hura, norabiderik gabe aurrera jarraitzea erokeria zela. Joxe Austin Arrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etsiarazi nahi (3); **etsiarazi zion** (3)

---

etsibide *iz* etsitzeko bidea.

Nahiz bere olerkiak nunbait beldurgarriak izan, hala ere aldi oroz uzten dute **etsibide** ilunetarik haraindian, etorkizunarentzat argi bat. Herria

---

etsidura *iz* etsipena.

Hainbat urtez ez zen egun bakar batez jaiki, hilko zela eta **etsiduraz** hil behar zuela asmatu gabe. Itxaro Borda

Emazteari, ordu lausoak hedatu zitzaizkion, haustura, harridura edo **etsidurarik** pairatu gabe. Itxaro Borda

Etsidurak gainditua oheratzen denean, horren irakurtzeak arima pizten omen dio. Herria

Thierryren bandakoek, nahiz eta handik lekora kide gehienak eritasunez, akiduraz eta **etsiduraz** hil ziren. Itxaro Borda

---

etsigaitz *izond* oso gutxitan etsitzen duena.

Gure Aresti filokomunista, errebelde, **etsigaitzak** ere hor utzi zigun "Nire aitaren etxea" gogoangarria, euskal erresistentziaren metaforatzat har genezakeena. Xabier Mendiguren Elizegi

Virenque **etsigaitzak** tropelari burla egin zion muturren aurrean, bi segundoko aldearekin irabazi zuen-eta. Berria - Kirola

Agirretar **etsigaitz** guztioi, / barrukoei eta kanpokoei, / zor eta eskaintzen die egileak / bere talentu apurraren emaitza hau. Koldo Izagirre

Irkutskera iristeko borondate gogorra eta duke handiari gutunaren edukia ahoz emateko asmo **etsigaitza**. Karlos Zabala

Aditzen ekimen **etsigaitza**; sustantiboen izate sustraitsua; izenordeen auzolanerako prestutasuna; adjektiboen juzkatzeko grina; atzizki-aurrizkien apaltasun ahaltsua; lokailuen zubi-lana. Joxerra Garzia

---

etsigarri 1 *izond* etsiarazten duena.

Aurten Rotterdamen saritutako Han Jie txinatarraren *Walking on the wild side*, Txinako gazteriaren erretratu **etsigarria**. Berria - Kultura

Egungo egoera **etsigarria** ikusita, Errepide Mapa da bakerako bide errealista bakarra, baita elkarrizketa eta negoziazioa berriz abiatzeko. Berria - Mundua

Ducati egiten ari den denboraldi hasiera **etsigarria** nahikoa da eztabaida bere horretan geratzeko. Berria - Kirola

Hiltzeko lotsarik ere ez dagoenean, umetzeko lotsarik ere ez dago, eta orduan, pertsona ilunabartuak, bere garapen oso eta **etsigarria** gainean dakusalarik, haur bihurtzera bulkatzen du bere burua. Iñaki Segurola

Bien idazlanetan ageri dira bizitzaren absurdoaren inguruko harridura eta errealitate **etsigarriak** sortzen duen itolarria. Berria - Kultura

Iowan eta New Hampshiren lorturiko emaitza **etsigarriak** berritu zituen demokraten hauteskunde primarioetan faborito hasi zen Howard Deanek ezkerreko liberala den

Vermonteko gobernadore ohia. Berria - Mundua

Huna «Pottoka» berriz ere bideari lotua, Montana-ko bide **etsigarrietan** gaindi! Herria

Hezkuntza sailburuaren erantzuna **etsigarria** izan da, 157 irakasle horiei ez dielako lan egonkortasuna bermatu. Berria - Harian

ELA eta LABek, berriz, bilera **«etsigarria»** izan zela azpimarratu zuten. Berria - Ekonomia

Egoera benetan **etsigarria** da uholdeek eragindako jendearentzat. Berria - Mundua

Epaiketaren bista auzipetuarentzat moralki **etsigarria** da eta defentsa lana egiten duen abokatuarentzat lan handia. Berria - Euskal Herria

«Emaitza oso **etsigarria** da», adierazi zuen Carlos Gil antzerki kritikariak, plana egiteko lehen bileretan parte hartu ondoren emaitzak hasierakoarekin «zerikusirik ez» zuela oharturik. Berria - Kultura

Etsigarria iruditu zait lehendakariaren urte amaierako mezua. Berria - Euskal Herria

Etxekoentzat ez dagoela bere zaleen txistuak entzutea baino gauza **etsigarriagorik**. Berria - Kirola

Sasoi **etsigarriena** 2000-2001ekoa izan zen. Berria - Kirola

Etsigarriena izan da ESKEk ez duela Europako kontinentea seguruago egiten laguntzen. Berria - Mundua

Enpresen proposamena **«etsigarritzat»** jo zuten sindikatuek. Berria - Ekonomia

2 *iz* etsiarazten duen gauza.

Etsigarria da, beraz, etsitzera, konformatzera, bertan goxo egitera, baietz esatera edo ixiltzera garamatzan zera bat. Iñaki Segurola

Hurko baten hil-ezkilak geure barrunbean joka dauzkagunean, lehentxeago edo geroxeago, etsi beharra dago, erotuko ez bagara; baina zerk ekarriko gaitu herstura horretan etsitzera?, zein izango da gure **etsigarria**? Iñaki Segurola

Etsi-gauzaren kontra jardun bai erruz, baina ez naiz ba ibiliko neu ere oharkabean, giza zomorro guztiak bezalaxe, **etsigarri** baten bila? Iñaki Segurola

3 (izenondoekin)

Denbora eta ahazmena direla diote hor **etsigarri** hoberenak, baina denbora eta ahazmena ez daude inon, ez daude inoren eskura. Iñaki Segurola

Gizakien -eta gizaki bakoitzaren baitako- gehiengoarentzat, karrera edo obra handiren batean kateatuak dauden (beren buruak jasotzen, eraikitzen, egiten ari diren) giza-emakume handinahi bakanak alde batera lagata, **etsigarri** beteena beste gizaki bat izan ohi dela, beste pertsona bat, eta batik bat, beste pertsonatxo bat. Iñaki Segurola

Pertsona helduaren kasuan, idealak izan ohi dira eskuarki bere biziko **etsigarri** gizenak, **etsigarri** esistentzialak: ideia bat, kausa bat, sinesmen bat. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

benetan etsigarria (3); **bezain etsigarri** (3); **bezain etsigarria** (3); **erantzuna etsigarria** (4); **erantzuna etsigarria izan** (4); **eta etsigarri** (3); **eta etsigarria** (7); **eta etsigarriak** (4); **etsigarri bat** (8); **etsigarria da** (21); **etsigarria dela** (7); **etsigarria izan** (15); **etsigarria izan da** (4); **etsigarria izan zela** (3); **etsigarria izan zen** (4); **etsigarria zen** (3); **etsigarriak izan** (6); **etsigarriak izan ziren** (4); **etsigarritzat jo** (3); **oso etsigarria** (4)

---

etsigarriro *adlag* era etsigarrian.

Hititak, adibidez, K.a. hamalaugarren eta hamahirugarren mendeetan Egiptoko asiar lurraldeak konkistatzeko egin zuten [...] gehiegizko esfortzuak hain **etsigarriro** ahulduta utzi zituenez, gero Völkerwanderung postminoikoaren uhinak azpian hartu zituen. Iñaki Mendiguren

Muturrez aurrera txinatarrekin Korean talka egin eta Indotxinan ere **etsigarriro** nahastuta egon zen Mendebaldeko komunitateak lortua zuen indonesiarrekin ondo moldatzea. Iñaki Mendiguren

Ginnyren burua batetik bestera zintzilikatzen zen **etsigarriro**. Iñaki Mendiguren

---

etsikor *izond* etsitzeko joera duena.

Berrogei jakintsu apetatsu edo **etsikor**, edo isil eta zoro. Fernando Morillo

Bere burua modernotzat zuen hura **etsikorra** zen benetan. Xabier Montoia

---

etsimen *(ETCn **723** agerraldi)* **1** *iz* etsipena.

Gizonak gainetik kendu ezin duen eta beti zori txarrera eramango duen patu gaiztoaren **etsimen** geroz eta argiagoa. Josu Zabaleta

Batek larritasun bat, **etsimen** bat du: bizitzarekin zer egin ez jakitea, plan bat ez izatea, galdurik, brujularik gabe, norarik gabe aurkitzea. Josu Zabaleta

Nahasmendua eta **etsimena** nagusi ziren lekuan, zaldun eder horietako bat lurreratzen da bere zaldi ketsuaren gainetik. Josu Zabaleta

Nire zoriona edo nire **etsimena** ekar lezakeen mezu baten zain baldin banago, ezerezean jaurtikita bezala nago. Josu Zabaleta

Hamabost urte nituenean hartu nuen lehenengo lezioa: ni baino gazteagoa zen anaia bati **etsimena** emana zioten egun batzuk lehenago. Josu Zabaleta

Han nengoen, lorik gabe, ahuldurik, abaildurik, begiak zabal, hankak luze, gorputza indarge, gogoa **etsimenak** gorturik. Josu Zabaleta

Arazo gehiago: Van Daan andrea **etsimenak** hartu du, bere buruari tiro bat jotzea, espetxea, urkatzea, bere buruaz beste egitea eta horrelako gauzak ari da aipatzen. Josu Zabaleta

Gaitzen kontra hartzen dituen bromuroen, eterren, opioaren gehiegikeriek ahultzen dute eta **etsimenera** eramaten. Josu Zabaleta

Sañudo joaten zen Cafe del Siglo hartan, ikasleak izaten ziren jende gehiena; izaten ziren familia talde batzuk ere, zerbitzarien **etsimenerako**. Josu Zabaleta

Besoak zabalduko ditu, **etsimenez** bezala. Josu Zabaleta

Jo al ditu bekokiaz altzariak, bere eztarrian **etsimenezko** oihu lazgarriei ezin eutsirik? Josu Zabaleta

Egoera lazgarria eta **etsimenezkoa**, aitarentzat eta ugazalabarentzat batez ere. Josu Zabaleta

Hala ere, bizi-nahia gainditzen da, barreneko eutsi ezinezko indar bat bezala, **etsimen** guztiaren gainetik, 1944ko apirilaren 5eko oharrean dioen bezala: Bizirik jarraitu nahi dut, hil eta gero ere! Josu Zabaleta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sentimendu horrek, larritasun eta **etsimen** existentzial horrek Barojaren pertsonaia askorena ez ezik, egilearen beraren bilaketa intelektuala gidatzen du. Josu Zabaleta

Negar egiteko gogoa eta **etsimen** urragarria, samin bortitzak eta paria baten lotsak, hori eragin didate. Josu Zabaleta

Bestelako **etsimen** sakonagoa ageri da Maupassanten obretan, egilearen beraren nortasunean errotua. Josu Zabaleta

Gizonak gainetik kendu ezin duen eta beti zori txarrera eramango duen patu gaiztoaren **etsimen** geroz eta argiagoa. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Etsimen aurpegia jarririk nire adiskideak. Josu Zabaleta

Etsimen egun batez. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta etsimena (3)

---

etsimendu *iz* etsimena.

Etsimendu eta desesperazio gabeko etsitze eta desengainu sano batekin. Iñaki Segurola

Laugarrena da, **etsimendua**, beren dolumin atsekabeek ez dutela sekula santan bururatzerik izanen jakitetik sortua. Piarres Xarriton

Urradura absolutu baten barnean baizik ez zekien sinesten, uztartzen balitu bezala fedea eta **etsimendua**. Piarres Aintziart

Alde batetik miseria eta bestetik **etsimendua** baitute herri hortan bizi, beste guziak aiserian jarriak diren denboran. Herria

Etsimenduak eta ernegazioak argialdiaren itxura ere har lezakete zenbaitetan, ilunaldiarena bezalaxe. Iñaki Segurola

Etsimenduak harturik ote zegoen osaba? Joan Mari Irigoien

Gaixo burasoak, **etsimenduak** higatuak! Michel Oronoz

Etsipen horrek, etsi-behar horrek ("etsi-etsian hauxe eta kito") etsitzailearen baitako eta barrunbeko etsipenean eta **etsimenduan** ditu... zainak?, ondorenak? Iñaki Segurola

Max Planck batek, berak aitortzen du, quantumaren hipotesia **"etsimenduzko** egintza batean" atera zuen, beste erremediorik ez zuelako aurkitu, hau da, hoberik ez zuelako. Iñaki Segurola

Estualdiak, edo oihu egin beharreko orduak, edo neurrigabeko poz edo **etsimenduzkoak**. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etsimendu eta (3)

---

etsipen *(ETCn **1.025** agerraldi)* **1** *iz* itxaropena erabat galdu duenaren egoera. ik **etsimen**.

Etsipena piztia tzarra da, behin baino gehiagotan erasotzen duena. Gotzon Garate

Zalantza nagusi den lekuan, sinesmena jar dezadala, / **etsipena** nagusi den lekuan, itxaropena jar dezadala. Askoren artean

Orain **etsipena**, *depression,* modan dagoela esan liteke. Gotzon Garate

Etsipena eta itxaropena ezagututa, amorrazioak -gero eta amorrazio handiagoak, denbora iragan arauz- elikatu zituen nire itxialdiaren azken orduak. Aingeru Epaltza

Afektu horietatik zalantza kentzen bada, Itxaropenetik Segurantza dator, eta Beldurretik **Etsipena**. Piarres Xarriton

Otsail-martxoetan zuri-beltzez egindako lehenbiziko margolanek barne-bulkada bortitzak adierazten zituzten: amorrua, beldurra, **etsipena**, aztoramena. Xabier Olarra

Erabakiak haserrea eta **etsipena** eragin du alderdiko militanteen artean. Berria - Mundua

Ausarta esaten zidaten, eta nik banekien ez zela ausardia, **etsipena**, eromena baizik. Jon Muñoz

Borroka nahiak ez du arnas handirik, fruituak behar ditu, ahalik eta lasterren, indarrak bazkatuko baditu; gero noraeza dator, **etsipena**, gorrotoa; eta behin zirkuluaren baitan sartua, itxi egiten dira itzulbideak eta estutu sarezuloak. Karlos Linazasoro

Orain, ene begiek idazten dudana ozta-ozta irakur dezaketen tenore honetan, jaio nintzen hexagonotik legoa gutxi batzuetara hiltzeko **etsipena** hartu dut. Juan Garzia

Hausnarketa horiek nolabaiteko tristura eta **etsipena** eragiten dizute. Rafa Egiguren

Eragin mugatuko itunak **etsipena** zabaldu zuen langile batzuen artean. Berria - Ekonomia

Ezin du **etsipena** ezkutatu. Berria - Kirola

Baionako kaleetan deserritu mordoa zebilen, batera eta bestera; erdi biluzik askotan, hotza eta **etsipena** gainditu nahiz beti, erabat mozkortuta. Txillardegi

Etsipen horrek, etsi-behar horrek ("etsi-etsian hauxe eta kito") etsitzailearen baitako eta barrunbeko **etsipenean** eta etsimenduan ditu... zainak?, ondorenak? Iñaki Segurola

Itxaropenik gabeko **etsipena**. Joseba Urteaga

Aiarako gizonak, zenduetako asko ezagutzen zituztela eta, **etsipenean** eroriz joan ziren. Joanes Urkixo

Etsipenean etsia, barne oinazean gogortua, sortua. Txillardegi

Argi ttipi bat, xume-xumea, baina aski halere **etsipenean** ez arrunt itotzeko. Janbattitt Dirassar

Orain erasoan ari zen ostera, hondamena aldean ekarriz, itxaropena **etsipen** bihurtuz, eta garaipena heriotza. Agustin Otsoa

Abenduko poza **etsipen** bilakatu zen atzo Iruñeko Irrintzi dorrean. Berria - Euskal Herria

Eta aukera hori gauzatzen ez dela ikusita, **etsipena** sortuko da, tiroak airera bota beharko dituzte, gerra hori hegazkinek irabazi dutelako. Berria - Kultura

Hori du **etsipenak** ona: bakea, naretasuna. Ramon Saizarbitoria

Problema maniako-depresiboak dituzten psikiatrak bolada batean zorionez gainezka ibiliko dira eta hurrengoan **etsipenak** jota, irten ezinezko zuloan sartuta. Gotzon Garate

Solikamsk herrira iristerako, **etsipenak** eman ohi duen ausardiaz betea zegoen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Etsipenak ez dezala halere gure bihotza jo. Herria

Krudela da **etsipenak** jo duen eria izutzea, kontsolazioak eta sendabideak baizik ez baititu merezi. Jon Muñoz

Etsipenak hartzen bazaitu, begiraiozu haren kopetaren argiari eta itxaropena berreskuratuko duzu. Patxi Zubizarreta

Etsipenak sosegatuko zizkidan noski nerbioak. Koro Navarro

Malenkonia zen, pentsatu zuen, beraren sentimenaren nota nagusia, baina aldian aldiko fedeak eta **etsipenak** eta poztasun xeheak ematua. Irene Aldasoro

Nekeak eta **etsipenak** lur jota utzi naitek! Karlos Zabala

Itxaropenaren eta **etsipenaren** artean. Jon Muñoz

Ordutik hona Claudio Magrisek utopia eta **etsipenaren** arteko sinbiosi gisa definitu duen bidetik ibili da mendebaleko historia literarioa **Etsipenaren** gaitzean eror ez daitezen. Anjel Lertxundi

Etsipenaren gatibu eta amarengandik gero eta urrutiago, arrebarekin bakarrik hartzen zuen Nathanielek atseden. Anjel Lertxundi

Euren bizimoduaren beldur, euren **etsipenaren** beldur, euren egunen beldur: txutea sartu eta hurrengorako dirua atera, txutea eta dirua, txutea eta dirua... egunez egun, astez aste, urtez urte... gauza bakarra buruan, gauza bakarra bizitzan. Sonia Gonzalez

"Ez da nire **etsipenaren** ondorioa baizik" erantzun nion oldarturik. Jon Muñoz

Tristatu zen oso eta **etsipenaren** uretan busti ere bai, ia itotzeraino. Felipe Juaristi

Ezetz esatera ausartu balira [...] trajikoki amilduko zen atzeraka **etsipenaren** uholde saminetan. Anton Garikano

Arropa dotoreak urratu zituzten eta buruko ileak errotik atera, **etsipenaren etsipenaz**. Felipe Juaristi

«Pobreziari, ustelkeriari eta **etsipenari**» aurre egiteko hitzarmen soziala proposatu du. Berria - Mundua

Borrokaren balioari egiazko dimentsioa ematea, inertzietan eta **etsipenean** erori gabe. Berria - Ekonomia

Etsipenez onartu du legea. Berria - Euskal Herria

Kontu handiz hasieran, axolagabe gero, **etsipenez** azkenean, norarik gabe ibili nintzen jauregi atzemanezin hartako eskailera eta zoletan barrena. Juan Garzia

"Semea, hiltzaile..." errepikatzean begiak **etsipenez** hesten zituen. Itxaro Borda

Etsipenez mugitu zuen burua. Anjel Lertxundi

Poetak **etsipenez** gaineratu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

-Beldur naiz ez duzula batere ondo pasatu -esan zion Mary Janek, **etsipenez**. Irene Aldasoro

-Horrelako pertsonek ez lukete inoiz hil behar -erantsi du **etsipenez**. Txillardegi

Begiratu egin zidan bere begi ilun **etsipenez** beteekin. Jon Muñoz

Eskuak jaso eta berriz jaisten utzi ditu **etsipenez**, bekokian une berean dozenaka zimur txiki azaltzen zitzaizkiola: karraskari txiki bat zirudien, tranpan jausi berri. Urtzi Urrutikoetxea

Dena ilun ikusi dut, ilun eta ezkor, ezkor eta **etsipenez** betea. Patxi Zubizarreta

Edozerk hausten nau, edozerk **etsipenera** eramaten. Txillardegi

-Don Estebe bezalako apaiz ezin itxiago bat, Azpil dogmakeriaren tunelean sartu zuena -erantzun zidan, keinu bat eginez, haserretik **etsipenerako** bidean-. Joan Mari Irigoien

Mosku Irratiak ez zuen kurduez ezer esaten, aitaren **etsipenerako**. Juan Kruz Igerabide

Ohean jotzen dugun bakoitzean lehenbiziko tximino ohatuaren desengainua eta oroimina berritzen ditugu, eta gizatasun irabazi berriak eman zion nahigabea, **etsipena** eta etsi-ezina. Iñaki Segurola

Etsipena, depresioa da gure egunetako gaitzik hedatuena. Gotzon Garate

Hala ere, ziurgabetasunaren amildegia eta **etsipenarena** elkartzen diren lur zerrenda estuan, bidez bide jarraituko zuen. Imanol Zurutuza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskaldunen esperantza guziak laster **etsipen** handi batean ito baitziren. Herria

Horrelako urratsek inon oihartzunik ez zutela ikusteak **etsipen** ikaragarria sortu zidan. Berria - Euskal Herria

-Zer, ostatura joanen gara -galdegiten dio Kattalinek Txomini, kar handirik gabe, **etsipen** ttipi batekin. Eneko Bidegain

Etsipen lasai batez ikusten dut egunak eta, batez ere, gauak nola joaten diren. Amore ematea, **etsipen** hotza eta baretasuna. Iban Zaldua

Ez da tragikoa, izugarria da: **etsipen** lehorra, malkorik eta errukirik gabea adierazten du. Monika Etxebarria

Honezkero uxatuko ahal zenuen **etsipen** goibela. Mirentxu Larrañaga

Tarteka neurriz goitiko poz batek inarrosten zuen, beste batzuetan **etsipen** ilunaren zuloan erortzen zen. Fernando Rey

Baroja-renak **etsipen** mingots bat dirudi, erdeinu eta gorrotozkoa, kultura espainolaren maitasuna baino gehiago. Joxe Azurmendi

Bizimodu horrek eraman zuen hondamenera, eta bihotza **etsipen** beltzez bete zitzaion bere zeregina ezin buruturik. Karlos Zabala

Beldurrak jota geratu natzaio begira, bere gorputz sendoaren itzalguneak, bere ibilpauso nekatua, bere sabelpeko dingilindango iluna, bere keinuek islatzen duten **etsipen** sakona. Joseba Sarrionandia

Ezagunak zaizkidan keinuz - **etsipen** urduriz, esango nuke-, nire buruari azalpen bat ematera nindoan. Karlos Linazasoro

Piotr Vasilitxek berrogeita hamahiru urte zituen orduan, eta giltzape-aldi luzearen ordain bakarra **etsipen** infinitua izan zen. Iban Zaldua

Ele hain ezti hark, nire zorionak askietsiak, ez dit jadanik, baldin aldatu bazara, **etsipen** eternalaren irudia baizik eskaintzen. Jon Muñoz

Ez baitago **etsipen** gozorik inon, berarekin baitakar minaren itzala, argiak ere iluntasuna bere baitan daraman bezala. Felipe Juaristi

Etsipen aitortu bat da zoriontasuna. Iñaki Segurola

Su-etena hautsi ondoren, ordea, lehengo **etsipenera** itzuli ginen gehienok. Herria

Ezinbesteko porrotak era bertsuan ezinbesteko **etsipena** ekartzen duenean, ospea galdutako gidariek indarra erabiltzera jotzen dute moralki galdutako aginpideari eutsi ahal izateko. Iñaki Mendiguren

Nolabaiteko **etsipena** sumatzen zen haren ahotsean. Iñaki Mendiguren

Begira zaitez indarra iragartzen duten bainoago erabateko **etsipena** iragartzen duten oldarrezko delibero horietarik. Jon Muñoz

Izigarriko **etsipenak** itotzen ari ninduen. Janbattitt Dirassar

Ezin adierazizko **etsipen** eta larritasunaz jarraitzen zieten nire begiek penduluaren atzera eta aurrerako mugimenduei. Koro Navarro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Etsipen aurpegia jarri zuen. Iñaki Zabaleta

Etsipen une bat behintzat behar du heriotzara doala dakienak. Koldo Izagirre

Gerra eta armaden inguruan izaten ahal diren aurreiritzi guztiak alde batera utzita, filmak ederki islatzen du **etsipen** sentipen hori. Berria - Kultura

Etsipen -sentimendua antzematen zitzaien beraiek garbia, itxia eta zirrizturik gabea izatea nahiko luketen testu horri ikusten zizkioten akatsengatik. Santiago Iruretagoiena

Roberto Goaza komisarioak **etsipen** zizpurua egin zuen. Harkaitz Cano

Etsipen imintzioa egin zuen gizonak. Josu Landa

Honetan lotzen da, agian, baina beste maila batean, Anneren testua Seoanen ezagutu nuen neskato bizkor haren **etsipen** oihuarekin. Josu Zabaleta

Isidro Ferrer Bartzelonako Unibertsitateko Neuropatologia Saileko kideak Alzheimerren gaitzari buruz hitz egitean bazter lagatzen ditu **etsipen** hitzak. Berria - Gaiak

Ezer ez ikustearen poderioz, bere zelata lanetan zapuztua, gizonak lehen **etsipen** keinuak egin zituen. Patxi Zubizarreta

Betti Zubiburu bere aldiaren aiduru zen, **etsipen** aire batekin. Elena Touyarou

Botere-egiturak oro iraultzeko aldarriaren ordez, **etsipen** -kutsu bat zabaltzen zuen Barojak, oso berea zuen ezkortasun fatalista. Xabier Mendiguren Elizegi

Orobat saiatu zen **etsipen** aztarnarik ez agertzen. Imanol Zurutuza

Wanda Ford itxaropen eta **etsipen** uhinek gora eta behera zerabilten. Gotzon Garate

Mendi zuri ikaragarria, Mont Blanc, **etsipen** -eragile bihurtuko da. Oskar Arana

Bozkario iturri hori **etsipen** iturri bilakatu da ordea, malkoak isurtzen ikusi zaitudanez geroztik. Jon Muñoz

Amorru eta **etsipen** haizea nabaritu zuen orduan. Agustin Otsoa

Etorkizun bikain, asmo ezkutu eta egintza **etsipen** -emangarriko edozein andre. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iritsia naiz, hona, nire kontakizunaren muin erranezinera; hemen hasten da nire idazle-**etsipena**. Juan Garzia

5 *etsipenezko izlag/izond*

Beldur iragankor bat, **etsipenezko** une bat, amodioak ordea berehala desagertarazi duena. Jon Muñoz

Harryk Roni begiratu zion, eta Ronek **etsipenezko** begiratua itzuli zion Harryri. Iñaki Mendiguren

Poliziak hil zuen ala ETAk, hildakoari eta zergatiei buruzko zertzeladak ez ditut gogoan, baina bai Karmeni atera zitzaion **etsipenezko** zotina: -Hau zoritxarra gurea! Anjel Lertxundi

Ezkerraldetik eskuinaldera zeharkatu zuen haren gorputza, eskuinaldetik ezkerraldera ondoren, eta niri begira geratu zen, **etsipenezko** keinua eginez. Juan Luis Zabala

Etsipenezko espresio aldagaitz ia-ia malenkoniatsua aurpegian eta begi gaztainkaretan. Urtzi Urrutikoetxea

Joxe Azurmendik **etsipenezko** hitz berde ederrez esan zuen bezala, mixerablea da zinez gizakia, legea behar baitu mixerable izateari uzteko. Joxerra Garzia

Etsipenezko zinkurin batez begiak erdi itxi, eta leize-zuloren batetik irtendako hondorik gabeko ahots batez hitz egin zuen Norak: [...]. Anjel Lertxundi

Ez nuen borrokan jarraitu, baina **etsipenezko** deiadar ozen, luze eta atzeneko batean aurkitu zuen hustubidea nire arimaren agoniak. Koro Navarro

-Agian bai -erantzun zuen Sofik, bere ahots goxoa gehituz neska gaztearen **etsipenezko** tonuari. Fernando Rey

Etsipenezko gutunak ziren. Jon Muñoz

· Kolko Mitxoletaren hitzak **etsipenezkoak** ziren. Jon Alonso

Meursault pertsonaiaren "ni" **etsipenezkoak** luzaz pertsegitu ninduen. Ana Urkiza

Ez baitzuen oroimeneko mundu zoragarria errealitate **etsipenezkoarekin** nahastu nahi. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina etsipena (3); **bere etsipena** (6); **da etsipena** (3); **du etsipena** (5); **edo etsipen** (4); **edo etsipena** (5); **edo etsipenak** (3); **eta etsipen** (25); **eta etsipena** (44); **eta etsipena eragin** (3); **eta etsipenak** (16); **eta etsipenaren** (19); **eta etsipenaren artean** (3); **eta etsipenaz** (3); **eta etsipenean** (3); **eta etsipenez** (15); **eta etsipenik** (5); **eta horrek etsipena** (3); **etsipen apur** (3); **etsipen beltzak** (3); **etsipen eta** (10); **etsipen handia** (7); **etsipen hori** (4); **etsipen horrek** (3); **etsipen hura** (7); **etsipen keinu** (9); **etsipen keinu bat** (5); **etsipen keinu batez** (4); **etsipen keinua** (6); **etsipen keinua egin** (5); **etsipen kutsu** (5); **etsipen kutsu bat** (3); **etsipen puntu** (3); **etsipena adierazi** (4); **etsipena adierazi zuen** (3); **etsipena adierazten** (4); **etsipena agertu** (4); **etsipena agertu zuen** (3); **etsipena baino** (3); **etsipena besterik** (3); **etsipena besterik ez** (3); **etsipena edo** (4); **etsipena ekarri** (3); **etsipena eman** (3); **etsipena eragin** (10); **etsipena ere** (4); **etsipena eta** (23); **etsipena ez** (3); **etsipena hartzen** (3); **etsipena nabari** (3); **etsipena nagusitzen** (4); **etsipena sortu** (4); **etsipena sortzen** (5); **etsipena zen** (3); **etsipenak eta** (6); **etsipenak ez** (3); **etsipenak hartu** (7); **etsipenak hartu zuen** (5); **etsipenak hartua** (4); **etsipenak hartzen** (3); **etsipenak jo** (6); **etsipenak jota** (20); **etsipenaren artean** (3); **etsipenaren eta** (3); **etsipenaren hondoraino** (3);

etsipenaren ondorioa (3); **etsipenari aurre** (4); **etsipenari aurre egiteko** (3); **etsipenean erori** (4); **etsipenean ez** (3); **etsipenez bete** (3); **etsipenez beterik** (6); **etsipenez betetzen** (3); **etsipenez eta** (5); **etsipenez onartu** (6); **etsipenezko eta** (3); **etsipenik sentitzen** (3); **horrek etsipena** (4); **ia etsipenaren** (3); **ia etsipenaren hondoraino** (3); **ikusteak etsipena** (3); **nire etsipena** (5); **samina eta etsipena** (3); **utzi etsipenak** (3); **zen etsipena** (3)

---

etsipenaldi *iz* etsipenezko aldia.

Gizaki zaharrak **etsipenaldi** asko izan ondoren, noiz nola jokatu behar duen jakiten du. Gotzon Garate

---

etsipendu, etsipen(du), etsipentzen **1** da/du etsipenak jo.

Akropolisen joanda bezala zegoela iruditu zait une batzuetan, **etsipenduta** bezala. Pako Aristi

Gizonak, hala ere, furfuriatsu eta **etsipendurik** erantzun zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Han zeuden konposatzaileek, aurpegi margotuari azkenean malkoak jartzen dizkion umeak bailiran, partituretan banatu zituzten hitzak: 'larghetto' lasaia, 'andantino' biziagoa, 'appassionato' kitzikaria, 'morendo' hilgarria, 'dolcissimo' ezin samurragoa, 'disperato' **etsipendua**, 'mezzo forte' indartsua. Pako Aristi

Nire hitzak kritikatzen dituzue, haizeak daramatzan **etsipenduaren** hitzak direlarik. Elizen arteko biblia

---

etsipengarri *izond* etsipena eragiten duena.

Aiena ezazu batez ere beldur **etsipengarri** hori. Jon Muñoz

Bizirik irauteko beharrak ezarri zinan bere legea -keinu **etsipengarria** egin zuen-, eta hik bete besterik ez hunan egin. Migel Angel Mintegi

Uko egiten diot uste **etsipengarri** horri, nire oinazeak mukurutuko bailituzke. Jon Muñoz

Emaitza aski **etsipengarria** izan zen. Joxerra Garzia

Oso **etsipengarria** izan zen Europako Batasunak eginiko proposamena onartu ez izana. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Etsipengarria, inondik ere, Kristinarentzat, baina eskertzekoa enetzat, luzamendu gehiagorik gabe bizitegia alokatzeko bidean eman baikintuen hiriko auzo batean. Aingeru Epaltza

---

etsita ik **etsi**.

---

etsitu ik **etsi**.

---

etsituki *adlag* etsi-etsian.

Gizona, eskua ateko heldulekuari irmoki oraturik, naturaltasunaren itxura egiten saiatzen zen, **etsituki**, eta hala ere ez zuen horrelakorik lortzen. Jon Alonso

Maria Astafevna erizaina ez zegoen Egor Timofeievitxez maitemindurik: baziren hiru urte -klinikan lanean hasi zenetik- Shevirev doktorea **etsituki** maite zuela, baina ez zen ausartzen bere maitasuna adieraztera. Jose Morales

Eussara gonbidatu ninduenean, aste bete zuela, bere penak eta bere soro handiko lan erraldoiak deblauki eta aldi berdinean **etsituki** edo eroki, aipatu zizkidan. Itxaro Borda

---

etsiturik **1** *adlag* etsirik.

Etsiturik, Santespiritako zubia zeharkatu zuten, eta Baiona Ttipiko karriketan barna ibili ziren norabide zehatzik gabe. Elena Touyarou

Etsiturik, ohitu egin zen ni hala ikusteaz: hogei urte baino gehiago eta oraindik eskolan. Joseba Urteaga

Etsiturik, eskuekin aurpegia estali, eta aintzira-bazterreko lur larru-kolorekoaren gainean blaust eseri zen. Fernando Rey

Etsiturik, tristurak jota, oinazez eta gorrotoz dardarka, inbidiaz lehertzen eta negarretik hurbil zegoen Demba kalean. Anton Garikano

Etsiturik, grinatsu, malkotan, infernura kondenaturikoen larrua izan zen gau hartan jo genuena. Edorta Jimenez

Non ote zen jakiteko modurik izango ez nuela **etsiturik** nengoelarik, iheserako bidea bilatzen zuen jendetza haren erdian ikusi nuen. Edorta Jimenez

Mairuek, hondamenak **etsiturik**, atzera egin zuten. Jon Alonso

Inazito **etsiturik** geratu zen, Padre Buruargik bera deitu ez zuelako, hala deitzen baitzion berak. Joseba Sarrionandia

Sukaldean batu zirelarik gosaritzat xorigariz egin ogi-zopak esne beroarekin jateko, Graxi eta Domenga bata besteari so egon ziren, **etsiturik**. Elena Touyarou

Ni bi urte lehenago beste norbaitekin nahastuko banindu bezala begiratzen zidaneko garaiekin gogoratzen nintzen eta askotan, **etsiturik**, alde egiten nuen itzuli bat egitera. Joxean Agirre

Nahiz eta ezin argiki erran, salaketarik edo ondoriorik ez duten kasu anitz gelditzen direla azaltzen dute, **etsiturik**. Berria - Harian

· Egunak kuxkur-**etsiturik** higatu zituen. Itxaro Borda

2 (izenlagunekin)

Ezkor eta **etsiturik** zegoen dagoeneko Goya. Berria - Kultura

Moon tide eta *The impostor* filmatu eta, **etsiturik**, sorterrira itzuli eta Frantziako Indar Libreen armadan sartu zen. Berria - Kultura

Lehenik izenda dezagun horietan Filipe Mugica, kasik bera eta gu ere erdi **etsiturik** utziak ginituena. Herria

Biziki **etsiturik** sentitu naiz sexuan, kilika luze desatsegin bat sumatu dut. Monika Etxebarria

Arras **etsiturik** nengoen. Joxan Elosegi

Haien seme-alaba franko ikusi ditugu, 60-70eko hamarraldietan, zinez **etsiturik**. Piarres Xarriton

Afera agudo moldatuko zela sinetsirik batzuk, arrunt **etsiturik** gehienak, ehuna dolar amestuak noiz bilduko esperoan guzti-guztiak. Xabier Montoia

Lehen ere erakutsia zuen bere nagusitasuna eta sasoia, eta, egia esanda, nahiko **etsiturik** plazaratu naiz. Berria - Kirola

Otoitza baita egoera guztietan estuena, otoizlariak borrokan egin gabe ematen baitu amore, behingoz **etsiturik**. Jon Alonso

---

etsituta *adlag* etsita, etsiturik.

Etsituta gaude. Berria - Mundua

Druida, **etsituta**, hasperen egin eta istorioa beste behin kontatzeko prestatu zen. Joanes Urkixo

Volkswageneko langileen batzordeko presidentea zuzendaritzaren jarrerarekin **etsituta** mintzatu da. Berria - Ekonomia

«Materiala hartu behar izaten dugu maiz eta badakizu...», dio **etsituta**. Berria - Euskal Herria

etsitzaile *izond* etsitzen duena.

Baina etsipen horrek, etsi-behar horrek ("etsi-etsian hauxe eta kito") **etsitzailearen** baitako eta barrunbeko etsipenean eta etsimenduan ditu... zainak?, ondorenak? Iñaki Segurola

etsitze *iz* norbaitek zerbaiten itxaropena galtzea, dagoen bezala gelditzea onartuz, amore emanez, bertan behera utziz edo hartara ohituz.

Bateko **etsitze**, besteko etsi-behar, etsipen eta destitxa! Iñaki Segurola

Emakume honek, **etsitzearekin** batera, sumatu zuen xede bat behar zuela hartu, hautsi-mautsi bat behar zuela nirekin egin. Jon Muñoz

Angel Acebesen ustez, ekimena «ez da bakearena, lotsarena eta ETAren aurrean **etsitzearena** baizik». Berria - Euskal Herria

etsitzear *adlag* etsitzeko zorian.

Etsitzear nengoela, Ch-ren ahots tipia aditu zen. Bernardo Atxaga

Olivier **etsitzear** zegoenean, belarria atean itsatsita komediantea amore ematear zegoela iruditzen bazitzaion ere, azken unean berriro hasten zen teklak sakatzen eta sakatzen, indarberrituta. Harkaitz Cano

Ia **etsitzear** zenean, keinu ezagun bat atzeman zuen mila keinu arrotzen artean. Harkaitz Cano

Etsitzear izanagatik, arma itxurako eskukiaren indarra hezurretan mantendu nion, are bortizkiago oraino. Itxaro Borda

Bai, hori zen, zioen **etsitzear**, Agatak lagunen, adiskideen eta kide soilen hagitz aspertzeko ahalmen izugarria zeukan. Itxaro Borda

etxabe *iz* etxearen behealdea.

Auzoberriko **etxabe** batean biltzen dira. Aingeru Epaltza

Bederatzi auto erre ziren atzo Santurtzin (Bizkaia) **etxabe** bateko garajean, eta etxeko bizilagunak bertatik aterarazi zituzten. Berria - Euskal Herria

Herriko kale nagusian, nondik iragaten baitzen Alpujarretara bisitan etortzen zirèn turista gero eta ugariagoen trafikoa, **etxabe** bat erostekoa, elkarrekin bizi izandako lau urteetako aurrezkitxoekin bereganatu zutena. Joan Mari Irigoien

Urak etxebizitzako **etxabea** bete zuen. Berria - Euskal Herria

Gaur egun **etxabeak** baliatzen dituzte, baina hori ez da konponbidea. Berria - Euskal Herria

Suhiltzaileek eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak adierazi zutenez, zenbait irteera egin behar izan zituzten urak garajeak eta **etxabeak** hartu zituelako. Berria - Harian

etxabere *iz* etxeko aberea.

Basabere eta **etxabere**, narrasti eta hegazti. Elizen arteko biblia

Zergatik hegaztia, eta ez beste edozein **etxabere** edo basapizti? Patziku Perurena

Mundutik hautatutako piztiak hobetu eta **etxabere** bihurtzen zituzten leku hartan. Xabier Olarra

Gerora ohartu nintzen, jendea hil bezain pronto lurperatu eta gorde egiten zela, **etxabere** hilak, basapizti galduak, arbola irauliak edo pareta zahar eroriak ez bezala. Patziku Perurena

Lasaitu egin zen; izan ere, Harry beldur izan zen Hagridek ez ote zuen arazorik izan **etxabere** izugarriren batekin. Iñaki Mendiguren

Zerbait kutsatua ukitzen duena, hala nola basabere nahiz **etxabere** kutsatu baten edo piztiaren baten sarraskia, konturatu gabe izanda ere, kutsatu bihurtzen da eta errudun. Elizen arteko biblia

Zure arratoia nintzen..., zure **etxabere** zintzoa. Iñaki Mendiguren

Zakurra **etxaberea** da, ezagutzen den zaharrena. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta etxabere** (5)

etxaberetu, etxabere(tu), etxaberetzen du *ad* etxabere bihurtu.

Parisetik eta Vienatik etortzen ziren, altzari, zeta, oihal, grabatuz kargaturik, behin espineta bat ere ekarri zuten: emakumeak musikaz **etxaberetu** nahi zituen animalia basatiak. Xabier Olarra

etxabotaka *adlag adkor* botaka eta botaka.

Bakarrik egon arren eta isilik jardun arren eta lekutan egon arren, zure basamortu hartan gerta liteke tantaka hastea erasoa jotzea jasa botatzea erauntsia etortzea goian-behean egitea, letro adarka ibaika **etxabotaka** aritzea, zeruak irauli ahalean. Koldo Izagirre

etxada *iz* botaldia.

Etxada bakar batekin ehunka kaxa harrapatu zituztela. Joseba Sarrionandia

Karnadabako **etxada** batzuk egin nituen, lau apario. Koldo Izagirre

-1529an, Donemilian, Errioxan, abuztuaren 2an, ordu eta erdiko erauntsi ikusgarria, uholde latzak ekarri zituena: Monasterioa, lurrak eta **etxadiak** hondatuta, hildakoak ere asko. Pello Zabala

etxadi *iz* etxe saila; etxe handia.

Bostongo kale, plaza eta **etxadiak**. Anjel Lertxundi

Etxe bat alokatu zuten Y... n, alde batetik trafiko handiko kale batera eta bestetik komunitate-patio batera ematen zuen **etxadi** batean. Joseba Urteaga

Etxadiari emandako bigarren biran, bazterbide batean, aurkitu zuen bila zebilen tokia. Migel Angel Mintegi

Hondartza inguruko zumardia, alemanen hotela, zerrategi zaharrera heldu aurreko **etxadiak**. Anjel Lertxundi

etxean afaldu (15); etxean agertu (10); etxean aita (8); etxean ari (16); etxean ariko (36); etxean ariko da (10); etxean ariko dira (15); etxean atxiki (9); etxean atxilotu (20); etxean atxilotu zuten (11); etxean atxilotuta (10); etxean aurkeztu (8); etxean aurkitu (39); etxean aurkitu zuten (9); etxean aurkitutako (8); etxean azaldu (15); etxean bai (11); etxean baino (31); etxean bakarrik (35); etxean barrena (12); etxean behar (12); etxean bere (11); etxean berean (25); etxean beren (8); etxean bertan (90); etxean beste (15); etxean beti (24); etxean bezain (10); etxean bezala (74); etxean bezala sentitzen (11); etxean bi (18); etxean bildu (18); etxean biltzen (11); etxean bizi (121); etxean bizi da (10); etxean bizi izan (8); etxean bizi zen (25); etxean bizitzen (17); etxean da (24); etxean dago (36); etxean dagoela (8); etxean dagoen (10); etxean daude (11); etxean dena (13); etxean denak (8); etxean dira (13); etxean du (9); etxean edo (43); etxean eduki (21); etxean egin (65); etxean egindako (56); etxean egindako lehergailu (11); etxean eginen (10); etxean egingo (9); etxean eginiko (24); etxean egiteko (8); etxean egiten (34); etxean egon (71); etxean egon behar (10); etxean egon zen (8); etxean egongo (22); etxean egotea (12); etxean egoteko (12); etxean egoten (19); etxean egun (11); etxean eman (25); etxean ematen (11); etxean ere (91); etxean ere ez (12); etxean eserita (8); etxean eta (234); etxean eta elizan (19); etxean eta kanpoan (8); etxean euskal (8); etxean euskaraz (14); etxean ez (196); etxean ez da (10); etxean ez dute (9); etxean ez zegoela (9); etxean ez zegoen (14); etxean ez zen (12); etxean ezer (8); etxean ezin (12); etxean ezkutatu (8); etxean galdu (41); etxean galdu zuen (9); etxean gelditu (58); etxean gelditu eta (8); etxean gelditu (12); etxean gelditzea (9); etxean gelditzeko (9); etxean gelditzen (20); etxean geratu (91); etxean geratu dira (8); etxean geratu zen (17); etxean geratu ziren (8); etxean geratuko (12); etxean geratzea (23); etxean geratzeko (26); etxean geratzen (30); etxean gertatu (10); etxean gorde (8); etxean gordeta (8); etxean hain (8); etxean har (8); etxean hartu (77); etxean hartu zuen (17); etxean hartuko (14); etxean hartzea (10); etxean hartzeko (12); etxean hartzen (12); etxean hazi (8); etxean hil (14); etxean hiru (10); etxean ikasi (11); etxean ikusi (17); etxean inor (14); etxean irabazi (24); etxean irabaztea (12); etxean iragan (11); etxean iraganen (13); etxean iraganen da (9); etxean izan (58); etxean izan zuen (8); etxean izanen (11); etxean izango (37); etxean izango da (9); etxean izaten (14); etxean jarri (14); etxean jaso (9); etxean jokatu (47); etxean jokatuko (96); etxean jokatuko du (25); etxean jokatuko dute (23); etxean jokaturiko (9); etxean jokatutako (15); etxean jokatzea (35); etxean jokatzea abantaila (8); etxean jokatzeak (11); etxean jokatzeko (13); etxean jokatzen (83); etxean jokatzen du (14); etxean jokatzen dugu (9); etxean jokatzen dute (9); etxean korritzen (11); etxean lan (18); etxean lasai (13); etxean lo (29); etxean lo egin (12); etxean lo egiten (8); etxean lortu (9); etxean lortutako (9); etxean nago (11); etxean nahi (14); etxean nahiz (9); etxean nengoela (10); etxean nengoen (9); etxean nintzen (9); etxean norbait (9); etxean ondo (8); etxean oso (10); etxean ostatu (9); etxean otso (12); etxean partida (11); etxean pasatu (9); etxean pasatzen (8); etxean puntu (9); etxean sartu (192); etxean sartu da (9); etxean sartu eta (35); etxean sartu orduko (10); etxean sartu zen (35); etxean sartu ziren (20); etxean sartuko (9); etxean sarturik (11); etxean sartuta (17); etxean sartzea (9); etxean sartzean (16); etxean sartzeko (11); etxean sartzen (42); etxean sortu (8); etxean topatu (8); etxean utzi (38); etxean utzita (13); etxean utzitako (8); etxean uzten (10); etxean zain (8); etxean zegoela (23); etxean zegoen (39); etxean zehar (13); etxean zein (22); etxean zein kanpoan (10); etxean zen (15); etxean zer (17); etxean zeuden (28); etxean zuen (8)

euren etxean (23); euskal etxean (66); ez dago etxean (15); ez etxean (19); ez zegoen etxean (15); ez zen etxean (12); ezpeletako herriko etxean (8); familiaren etxean (9); gabaelen etxean (9); galdu etxean (10); garaziko herriko etxean (12); gaur etxean (10); genuen etxean (12); gero etxean (18); geure etxean (10); gurasoen etxean (42); gure etxean (219); gure etxean ez (15); guztiak etxean (12); haien etxean (29); haren etxean (104); hartan etxean (9); hartuko du etxean (10); hau etxean (11); haurrak etxean (9); herriko etxean (599); herriko etxean egin (11); herriko etxean eta (39); hire etxean (14); honetan etxean (11); hori etxean (9); hura etxean (15); inoren etxean (13); itzulikoa etxean (13); jainkoaren etxean (24); jaunaren etxean (54); jokatu ditu etxean (9); kafe etxean (11); kaleko etxean (11); kultur etxean (194); lagun baten etxean (14); lehen etxean (9); llumen etxean (10); lugaritz kultur etxean (8); nagusia herriko etxean (9); naiz etxean (12); neure etxean (33); ni etxean (15); nik etxean (17); nintzen etxean (20); nire etxean (106); nola etxean (8); nor bere etxean (9); norbait etxean (9); nuen etxean (28); okendo kultur etxean (10); ondoko etxean (13); orain etxean (11); oraindik etxean (20); osabaren etxean (12); osasun etxean (9); osoa etxean (12); pariseko euskal etxean (13); partida etxean (34); partidan etxean (8); polizia etxean (112); posta etxean (15); puntuak etxean (8); ren etxean (11); sabin etxean (43); sarako herriko etxean (8); sort etxean (8); taldeak etxean (16); xahar etxean (27); zahar etxean (12); zegoen etxean (28); zela etxean (10); zen etxean (81); zen gure etxean (14); zeure etxean (12); zigorra etxean (8); ziren etxean (26); zituen etxean (15); zituzten etxean (10); zuela etxean (16); zuen etxean (93); zure etxean (69); zuten etxean (34)

aseguru etxearen (8); aseguru etxeei (15); aseguru etxeek (45); aseguru etxeekin (9); aseguru etxeen (42); babes ofizialeko etxeen (11); baionako herriko etxearen (9); bere etxearen (22); beren etxeetan (48); beren etxeetara (26); beren etxeetara itzultzeko (8); beren etxeetatik (28); da herriko etxearen (13); errege etxearen (15); eskual etxearen (13); eta etxearen (33); eta etxeari (13); eta etxeen (26); eta etxeetako (12); eta etxeetan (24); eta etxeetara (8); etxearen aintzinean (33); etxearen aintzineko (10); etxearen aitzinean (27); etxearen alde (12); etxearen aurka (15); etxearen aurrean (47); etxearen bila (10); etxearen eta (26); etxearen inguruan (19); etxearen izena (18); etxearen jabe (12); etxearen jabea (12); etxearen jabeak (12); etxearen kontra (18); etxearen laguntzarekin (10); etxearen ondoan (24); etxearen parean (15); etxeari buruz (14); etxeari eraso (14); etxeari eta (14); etxeari su (15); etxeari su eman (13); etxeei eta (9); etxeek ere (10); etxeek ez (9); etxeen artean (17); etxeen arteko (11); etxeen eta (15); etxeen ginetik (9); etxeen kopa (11); etxeetako leihoak (9); etxeetan bizi (20); etxeetan ere (13); etxeetan eta (31); etxeetan ez (11); etxeetan sartu (16); etxeetara eta (9); etxeetara itzuli (15); etxeetara itzultzeko (14); etxeetara itzultzen (8); etxeetara joan (11); etxeetatik atera (9); etxeetatik ihes (8); euren etxeetan (19); euren etxeetara (21); euren etxeetatik (19); euskal etxearen (17); euskara herriko etxeetan (12); gure etxearen (20); gure etxeetan (8); haien etxeetan (11); haren etxearen (8); herriko etxearekin (16); herriko etxearen (205); herriko etxearen aintzinean (29); herriko etxearen aintzineko (10); herriko etxearen aitzinean (22); herriko etxearen laguntzarekin (8); herriko etxearen ondoan (9); herriko etxeari (44); herriko etxeek (43); herriko etxeekin (8); herriko etxeen (51); herriko etxeetan (36); jaunaren etxearen (8); kultur etxearen (9); kultur etxeetan (10); nire etxearen (13); ofizialeko etxeen (11); osasun etxeetan (14); polizia

etxearen (16); polizia etxeetan (21); tu etxearen (10); unespa aseguru etxeen (8); zahar etxeetan (11); zen etxearen (21); zuen etxearen (15)

atzeko etxeko (15); baina etxeko (32); bat etxeko (18); bere etxeko (170); bere etxekoak (13); beren etxeko (19); da etxeko (37); den etxeko (9); denen etxeko (28); denen etxeko gela (13); denen etxeko gelan (11); ditu etxeko (12); dontsu etxeko (15); du etxeko (34); edo etxeko (25); ere etxeko (24); erruki etxeko (13); esan zuen etxeko (9); eta etxeko (336); eta etxeko beste (9); eta etxeko guzieri (17); eta etxeko lanak (14); eta etxekoak (40); eta etxekoei (17); eta etxekoek (22); eta etxekoekin (10); eta etxekoen (28); eta etxekoeri (10); eta gure etxeko (9); etxeko alaba (14); etxeko andere (12); etxeko andreak (13); etxeko ardi (14); etxeko arropa (9); etxeko atarian (56); etxeko atarira (12); etxeko ate (28); etxeko atea (92); etxeko atea ireki (11); etxeko atea jo (9); etxeko atea zabaldu (11); etxeko ateak (20); etxeko atean (33); etxeko atearen (11); etxeko atera (10); etxeko atetik (16); etxeko azken (15); etxeko balkoitik (9); etxeko besta (11); etxeko besta gelan (9); etxeko beste (38); etxeko bezala (10); etxeko bi (13); etxeko bidea (19); etxeko egongelan (20); etxeko elkarteen (11); etxeko elkarteen gelan (11); etxeko elkarten (9); etxeko emakumeak (12); etxeko eta (45); etxeko euskara (13); etxeko ezkaratzean (10); etxeko ganbaran (11); etxeko gela (43); etxeko gelan (28); etxeko giltza (13); etxeko giltzak (12); etxeko giroa (14); etxeko gizona (9); etxeko guzieri (51); etxeko guztiak (26); etxeko guztiek (9); etxeko indarkeriaren (9); etxeko jaun (29); etxeko jauna (32); etxeko jaunak (26); etxeko jaunaren (16); etxeko jokalari (11); etxeko jokalariak (11); etxeko jokalariek (9); etxeko kontuak (14); etxeko laguntza (9); etxeko lan (29); etxeko lanak (194); etxeko lanak egin (28); etxeko lanak eginda (9); etxeko lanak egiteko (17); etxeko lanak egiten (23); etxeko lanak ondo (9); etxeko lanen (17); etxeko lanetan (47); etxeko langile (9); etxeko langileen (9); etxeko lau (13); etxeko lehen (11); etxeko leiho (17); etxeko leihotik (16); etxeko mantala (9); etxeko nagusi (19); etxeko nagusia (41); etxeko nagusiak (36); etxeko nagusiaren (10); etxeko nagusiari (13); etxeko partida (12); etxeko partidak (34); etxeko partidetan (30); etxeko salan (31); etxeko segida (13); etxeko seme (13); etxeko sotoan (9); etxeko sukaldean (36); etxeko taldea (63); etxeko taldeak (89); etxeko taldearen (38); etxeko taldearen aurka (15); etxeko taldeari (23); etxeko telefonoa (12); etxeko tresna (12); etxeko txirrina (9); etxeko zoko (11); etxekoa da (9); etxekoa eta (9); etxekoak dira (10); etxekoak ere (13); etxekoak eta (32); etxekoei eta (11); etxekoek eta (16); etxekoek ez (11); etxekoen alde (17); etxekoen artean (14); etxekoen aurrean (11); etxekoz etxeko (38); etxen egon (10); etxez etxeko (25); euskal etxeko (34); ez etxeko (17); goresmenak horien etxekoeri (29); gurasoen etxeko (11); gure etxeko (96); haren etxeko (32); herriko etxeko (236); herriko etxeko besta (10); herriko etxeko elkarteen (11); herriko etxeko elkarten (9); herriko etxeko gela (10); herriko etxeko gelan (14); herriko etxeko salan (11); horien etxekoeri (35); jainkoaren etxeko (30); jaunaren etxeko (49); kafe etxeko (20); kultur etxeko (24); nintzen etxeko (10); nire etxeko (29); nuen etxeko (12); osasun etxeko (12); polizia etxeko (9); zahar etxeko (14); zegoen etxeko (9); zen etxeko (63); zion etxeko (18); ziren etxeko (29); ziren etxekoak (15); zituen etxeko (16); zituzten etxekoek (9); zuen etxeko (72); zure etxeko (20); zuten etxeko (17); zuten etxekoek (21)

aitaren etxera (35); amaren etxera (16); amonaren etxera (11); andrearen etxera (11); atera eta etxera (12); atzera etxera (15); baina etxera (29); bakoitza bere etxera (15); bat etxera (23); batean etxera (16); baten etxera (46); baten etxera joan (12); batzuen etxera (9); behin etxera (11); beraren etxera (11); bere etxera (254); bere etxera eraman (23); bere etxera gonbidatu (13); bere etxera itzuli (12); bere etxera joan (30); beren etxera (18); berriro etxera (23); da etxera (40); denak etxera (11); dira etxera (30); du etxera (12); duen etxera (9); dut etxera (14); duzu etxera (14); edo etxera (12); egin eta etxera (13); ere etxera (16); ertzain etxera (9); eskolatik etxera (11); eta bere etxera (15); eta etxera (330); eta etxera eraman (25); eta etxera eramango (9); eta etxera itzuli (52); eta etxera itzultzeko (18); eta etxera joan (24); eta etxera sartu (9); eta gero etxera (12); etxera abiatu (39); etxera abiatu zen (11); etxera afaltzera (10); etxera ailegatu (13); etxera alde (16); etxera bazkaltzera (13); etxera bidali (49); etxera bidali zuen (10); etxera bidaliko (9); etxera bidaltzeko (10); etxera bidean (76); etxera bildu (9); etxera bisitan (10); etxera bizitzera (10); etxera bueltan (32); etxera bueltatu (28); etxera bueltatzeko (11); etxera buruz (10); etxera deitu (37); etxera edo (11); etxera egin (12); etxera ekarri (55); etxera ekarriko (12); etxera ekartzea (9); etxera ekartzeko (10); etxera ekartzen (11); etxera eraman (198); etxera eraman eta (14); etxera eraman nuen (9); etxera eraman zituen (12); etxera eraman zituzten (11); etxera eraman zuen (28); etxera eraman zuten (46); etxera eramango (28); etxera eramatea (10); etxera eramateko (38); etxera eramaten (35); etxera ere (13); etxera eta (79); etxera etorri (96); etxera etorri eta (19); etxera etorri zen (19); etxera etortzeko (15); etxera etortzen (39); etxera etortzen zen (11); etxera ez (19); etxera gonbidatu (35); etxera heldu (66); etxera heldu eta (9); etxera heltzean (13); etxera hurbildu (12); etxera hurbiltzen (9); etxera igo (22); etxera iristean (19); etxera iristen (12); etxera iritsi (121); etxera iritsi eta (23); etxera iritsi nintzenean (12); etxera iritsi zenean (12); etxera iritsitakoan (13); etxera itzul (14); etxera itzuli (378); etxera itzuli ahal (9); etxera itzuli behar (12); etxera itzuli eta (43); etxera itzuli ginen (11); etxera itzuli nahi (29); etxera itzuli naiz (10); etxera itzuli nintzen (23); etxera itzuli nintzenean (12); etxera itzuli zen (57); etxera itzuli zenean (13); etxera itzuli ziren (20); etxera itzuliko (55); etxera itzulita (21); etxera itzulitakoan (19); etxera itzultzea (54); etxera itzultzean (43); etxera itzultzeko (112); etxera itzultzen (102); etxera itzultzen da (9); etxera itzultzen zen (10); etxera jo (13); etxera joan (425); etxera joan behar (38); etxera joan beharko (10); etxera joan eta (48); etxera joan ginen (13); etxera joan nahi (23); etxera joan nintzen (30); etxera joan zen (110); etxera joan ziren (25); etxera joana (12); etxera joango (47); etxera joatea (27); etxera joateko (80); etxera joaten (83); etxera joaten zen (14); etxera joaten ziren (9); etxera noa (29); etxera orduko (10); etxera sartu (89); etxera sartu eta (14); etxera sartu zen (13); etxera sartzean (12); etxera sartzeko (17); etxera sartzen (21); etxera zihoala (12); ez zen etxera (10); gero etxera (31); ginen etxera (13); goazen etxera (20); gurasoen etxera (29); gure etxera (106); gure etxera etorri (17); gure etxera etortzen (10); haien etxera (15); haren etxera (68); haren etxera joan (17); hartu eta etxera (20); heldu zen etxera (12); herriko etxera (44); hire etxera (15); hoa etxera (13); hura etxera (9); itzuli dira etxera (10); itzuli etxera (10); itzuli nintzen etxera (12); itzuli zen etxera (32); izeben etxera (14); jainkoaren etxera (12); jaunaren etxera (39); joan zen etxera (12); lanetik etxera (23); laster etxera (15); manu etxera (14); naiz etxera (14); neure etxera (15); ni etxera (17); nintzen etxera (38); nire etxera (80); nire etxera etorri (9); nor bere etxera (25); nuen etxera (18); ondoren etxera (16); orain etxera (16); osaba izeben etxera (12); osasun etxera (12); polizi etxera (14); polizia etxera (95); polizia etxera eraman (34); polizia etxera joan (14); posta etxera (10); presoak etxera (16); zela etxera (9); zen etxera (134); zeure etxera (9); zion etxera (9); ziren etxera (26); zituen etxera (13); zoaz etxera (18); zuen etxera (58); zure etxera (44); zuten etxera (14)

atzo etxerat (18); bere etxerantz (11); bere etxerat (16); dio etxerat (13); dio etxerat ek (13); dira etxerat (11); dira herriko etxerat (11); ditu etxerat (9); donostia etxerat (9); du etxerat (55); du etxerat ek (48); dute etxerat (12); edo etxerik (9); estanis etxaburu etxerat (12); eta etxerako (38); eta etxerako bidea (13); eta etxerantz (25); eta etxerantz abiatu (13); eta etxerat (34); eta etxerat ek (12); eta etxerik (18); etxaburu etxerat (12); etxaburu etxerat eko (11); etxerako bidea (117); etxerako bidea hartu (47); etxerako bidean (117); etxerako bueltan (10); etxerantz abiatu (44); etxerantz abiatu zen (17); etxerantz egin (9); etxerat deituz (9); etxerat ek (343); etxerat ek deituta (15); etxerat ek eta (16); etxerat ek euskal (9); etxerat ek jakinarazi (24); etxerat ek salatu (16); etxerat eko (87); etxerat eko kide (10); etxerat eko kideak (24); etxerat eko kideek (13); etxerat elkarteak (61); etxerat elkarteko (9); etxerat en (57); etxerat eta (28); etxerat itzuli (33); etxerat joan (13); etxeren bat (9); etxeren batean (11); etxerik eta (9); etxerik etxe (13); etxerik ez (54); etxerik gabe (76); etxerik gabe gelditu (13); etxerik gabe geratu (18); etxerik gabe utzi (13); etxerik gabeko (24); ez etxerik (22); ez etxerik ez (11); gure etxerat (10); herriko etxerat (57); jaunaren etxerako (13); pertsona etxerik (9); pertsona etxerik gabe (9); salatu du etxerat (13); salatu zuen etxerat (17); zien etxerat (9); zien etxerat ek (9); zuen atzo etxerat (11); zuen etxerako (9); zuen etxerat (62); zuen etxerat ek (43); zuten etxerako (10); zuten etxerat (11)

abisu herriko etxetik (11); aitak etxetik (10); aitaren etxetik (10); amaren etxetik (10); atera zen etxetik (11); baina etxetik (25); bat etxetik (17); baten etxetik (9); bere etxetik (72); beren etxetik (13); bi etxetan (11); da etxetik (41); da etxetik kanpo (16); ditu etxetik (16); ditu etxetik at (10); du etxetik (26); du etxetik at (10); dute etxetik (11); edo etxetik (22); edozein etxetan (13); egin zuen etxetik (12); ere etxetik (23); ere etxetik kanpo (9); eta etxetik (135); eta etxetik atera (10); eta etxetik irten (12); eta etxetik kanpo (30); eta etxetik kanpoko (12); etxetik alde (161); etxetik alde egin (90); etxetik alde egiteko (11); etxetik alde egiten (17); etxetik at (153); etxetik atera (132); etxetik atera eta (31); etxetik atera gabe (16); etxetik ateratzeko (20); etxetik ateratzen (38); etxetik bota (27); etxetik ekarri (12); etxetik eta (38); etxetik ez (30); etxetik falta (18); etxetik gertu (47); etxetik hurbil (38); etxetik ihes (51); etxetik ihes egin (32); etxetik irten (118); etxetik irten eta (20); etxetik irten gabe (11); etxetik irten zen (11); etxetik irtetean (10); etxetik irteten (34); etxetik joan (23); etxetik kanpo (544); etxetik kanpo ere (16); etxetik kanpo jokatu (26); etxetik kanpo jokatuko (20); etxetik kanpo jokatzen (9); etxetik kanpo lan (12); etxetik kanpoko (94); etxetik kanpoko lehen (11); etxetik kanpoko partidetan (17); etxetik kanpora (74); etxetik lanera (9); etxetik oso (16); etxetik pasatu (9); etxetik urrun (66); etxetik urruti (10); goizean etxetik (11); gurasoen etxetik (18); gure etxetako (14); gure etxetan (10); gure etxetik (39); haren etxetik (23); herriko etxetako (10); herriko etxetan (32); herriko etxetik (130); irten zen etxetik (16); jokatu ditu etxetik (11); kafe etxetik (11); nintzen etxetik (14); nire etxetik (28); nuen etxetik (18); polizia etxetik (14); taldeak etxetik (10); zein etxetan (9); zen etxetik (60); zenbait etxetan (11); ziren etxetik (12); zituen etxetik (10); zuen etxetik (42); zure etxetik (10); zuten etxetik (10)

dira etxez (12); dira etxez etxe (12); eta etxez (23); eta etxez etxe (15); etxez aldatu (17); etxez aldatzeko (10); etxez etxe (163); etxez etxe ibili (9); etxez etxe ibiltzen (10); etxez etxeko (25)

---

etxeaitzin *iz* etxeaurrea.

Ikusi nuen murru, arku, **etxeaitzin** eta biltokirik: harrizko goi-ordoki bat zen oinarria. Juan Garzia

---

etxebarriar *(orobat **etxebarritar**) izond* Etxebarriako biztanlea.

Beste bost, beraz, Mikel, Lauaxeta eta hiruroz gain: Jakobe amurriarra, Arrate eta Oihane **etxebarriarrak**, Arantxa urruñarra eta Jean Louis heletarra. Juan Luis Zabala

Gaurko saioan Euskadiko Txapela sei aldiz jantzi duen Mikel Altzola gernikarra, Okinako seme Juan Karlos Lopez eta Gaizka Goenaga **etxebarritarra** plazaratuko dira. Berria - Kirola

---

etxebarru ik **etxe 3**.

---

etxebizitza **1** *iz* etxe bat zatitzen den bizitegietako bakoitza.

Hiru solairu izango zituen etxeak planoen arabera, eta pisu bakoitzean **etxebizitza** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

12. A **etxebizitza** hartatik solairu bereko B-ra pasatu nintzen. Josetxo Azkona

Putzu kaleko denda, bere osoan [...], Martxel eta Kaxilda hire bi anai-arrebei utzi ziek, baita berak bizi diren **etxebizitza** ere. Txillardegi

Bere **etxebizitza**, gela huts hura, zergatik utzi duen ere ulertzen dut. Joxe Austin Arrieta

Liburu-dendaren eta garajearen gainean, **etxebizitzak** hartzen zuen lehenengo solairu oso-osoa. Jon Muñoz

Etxeko atarian lehenbizi eta **etxebizitzako** eskailburuan gero, txirrina zanpaka egin nuen denborak epeldu zizkidan haserrearen su-pindarrak. Aingeru Epaltza

Etxebizitzako hiruzpalau ateak ireki zituen ahal bezain gozo, oin puntetan ibiliz, egongela zeharkatuz, besoak zabal, altzariekin estropezu ez egiteko. Karlos Zabala

Sara Fuentesek gorroto ditu Pedrorekin **etxebizitza** partekatu zituen hilabete haiek. Iban Zaldua

Fabrikarekin batera, barrakoi batzuk eraiki zituen, langileek aukera izan zezaten **etxebizitza** bat lortzeko... ur berorik gabe eta izugarrizko alokairuen truke! Iban Zaldua

Ebro ibaiak gainezka eginik, 15.65 metroko altuera harrapatu zuten urek: 110 **etxebizitza** hondatu zituen, eta 29 hildako utzi. Pello Zabala

1545ean, "San Lukas egunekoa" deitu izan zitzaion Segura ibaiaren uholde gainezkakoari: 400etik gora **etxebizitza** lurrarekin berdindu zituen; eta 6 komentu bidean harrapatu zituenak. Pello Zabala

Luisa zen, alboko **etxebizitzan** bizi den auzoa. Josetxo Azkona

Eskailerak binaka igo nituen, eta arnasestuka iritsi nintzen maistraren **etxebizitzako** atera. Juan Kruz Igerabide

Etxebizitzako atea zabalik aurkitu nuen. Aingeru Epaltza

Azkenean auzo txinatarrean aurkitu nuen hogeita bost metro koadroko **etxebizitza** bat, behinola babes ofizialekoa izandakoa. Iban Zaldua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

- **Etxebizitza** polita duzu. Joxe Austin Arrieta

Po kalean bizi zen Doktorearekin, neguan Franklin berogailu batek baino epeltzen ez zuen **etxebizitza** ilun eta itsu batean. Juan Garzia

Bi minutu eta itzuli-mitzulika zenbaitzuren buruan, taxia gelditu zen **etxebizitza** handi baten aitzinean. Ramuntxo Etxeberri

Etxebizitzak izugarri handia izan behar zuen. Alberto Ladron Arana

Baionako gela apurraren ordez eta ordainez, **etxebizitza** txukun bat erosteko hautua egin nuen. Txillardegi

Anaiak bertan daukan **etxebizitza** hutsera iritsi bezain laster amaren dei bat jasotzen dut harekin meriendatzera joateko proposamena eginez. Iban Zaldua

Itsumustuka itzuli nintzen gure **etxebizitza** desegin eta hustura. Eduardo Matauko

Del Vallek eta Müllerren taldeko gizonek lau aste eman zituzten auzo latindarreko **etxebizitza** ziztrin batean, tiroketaren oihartzunak baretu ziren arte. Alberto Ladron Arana

Etxebizitza xixtrin bat aurkitu nuen, bestalde, Upaginen karrikan. Txillardegi

Etxebizitza alokatu bat zen, eta jende gehiagorekin bizi nintzen bertan, gastuak banatzeko eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxebizitza hipotekatua daukat, eta heldu den hilean amaituko da epea kreditua itzultzeko. Josetxo Azkona

Ulergaitz samarra egin zitzaion halako arratoi zuloan bizi zen norbaitek bigarren **etxebizitza** bat edukitzea. Harkaitz Cano

Ez nuen nahi, aitaren faltaren faltaz, egun batean hamabigarren **etxebizitza** batera igotzerik. Aingeru Epaltza

Egun batzuk geroago ikusi nuen, aurreneko aldiz, aldameneko **etxebizitzan** bizi zena. Juan Kruz Igerabide

Abandonaturiko **etxebizitza** bat duk. Aritz Gorrotxategi

3 (hitz elkartuetan)

Etxebizitza atarian zegoen. Iñigo Aranbarri

Matiasen inpresioa izan zen Fernandok ez zuela Eldasen inor ezagutzen bere **etxebizitza**-bloketik harago. Unai Elorriaga

Banekizkien karrika, ataria eta **etxebizitza** zenbakia irakurri nituen paperean. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

auzoko etxebizitza (9); **babes ofizialeko etxebizitza** (13); **babestutako etxebizitza** (5); **baino etxebizitza** (4); **bat etxebizitza** (12); **bere etxebizitza** (10); **beste etxebizitza** (8); **bi etxebizitza** (9); **bigarren etxebizitza** (7); **da etxebizitza** (13); **dagoen etxebizitza** (4); **dira etxebizitza** (7); **diren etxebizitza** (5); **ditu etxebizitza** (5); **dituzte etxebizitza** (4); **du etxebizitza** (22); **du etxebizitza guztiontzat** (5); **duen etxebizitza** (5); **dute etxebizitza** (9); **duten etxebizitza** (5); **eaeko etxebizitza** (11); **eaeko etxebizitza eta** (6); **edo etxebizitza** (6); **ehunka etxebizitza** (5); **eta etxebizitza** (120); **eta etxebizitza eta** (12); **eta etxebizitza sozialen** (5); **eta hainbat etxebizitza** (4); **etxebizitza alokatzeko** (5); **etxebizitza asko** (4); **etxebizitza babestuak** (6); **etxebizitza baino** (6); **etxebizitza baino gehiago** (4); **etxebizitza bakoitzean** (4); **etxebizitza bat** (57); **etxebizitza batean** (36); **etxebizitza batek** (9); **etxebizitza batek su** (4); **etxebizitza bateko** (8); **etxebizitza baten** (13); **etxebizitza baten metro** (4); **etxebizitza batera** (11); **etxebizitza batetik** (5); **etxebizitza bati** (4); **etxebizitza behar** (6); **etxebizitza berri** (22); **etxebizitza berriak** (5); **etxebizitza berrien** (5); **etxebizitza bi** (4); **etxebizitza birrindu** (6); **etxebizitza bloke** (5); **etxebizitza bota** (6); **etxebizitza daude** (6); **etxebizitza duin** (4); **etxebizitza duin bat** (4); **etxebizitza duina** (18); **etxebizitza duina izateko** (8); **etxebizitza duinak** (4); **etxebizitza egin** (8); **etxebizitza egin nahi** (4); **etxebizitza egingo** (5); **etxebizitza egiteko** (10); **etxebizitza eraiki** (4); **etxebizitza eraikiko** (11); **etxebizitza eraikiko dituzte** (5); **etxebizitza eraikitzeko** (7); **etxebizitza ere** (7); **etxebizitza erosi** (5); **etxebizitza erosteko** (25); **etxebizitza erosteko maileguak** (4); **etxebizitza erosten** (5); **etxebizitza eskubidea** (7); **etxebizitza eskuratzeko** (6); **etxebizitza eta** (183); **etxebizitza eta gizarte** (121); **etxebizitza eta ingurumen** (5); **etxebizitza ez** (6); **etxebizitza gehiago** (12); **etxebizitza guztiak** (8); **etxebizitza guztiontzat** (17); **etxebizitza guztiontzat plataformak** (5); **etxebizitza handi** (4); **etxebizitza hondatu** (4); **etxebizitza horiek** (8); **etxebizitza horretan** (7); **etxebizitza huts** (8); **etxebizitza hutsak** (6); **etxebizitza hutsik** (5); **etxebizitza inguru** (4); **etxebizitza izateko** (9); **etxebizitza izateko eskubidea** (6); **etxebizitza kontseilariak** (4); **etxebizitza lortzeko** (12); **etxebizitza merkatuaren** (4); **etxebizitza miatu** (11); **etxebizitza ordaintzeko** (5); **etxebizitza politika** (17); **etxebizitza propioa** (4); **etxebizitza publikoen** (4); **etxebizitza sailak** (35); **etxebizitza sailak eta** (6); **etxebizitza sailaren** (4); **etxebizitza sailburu** (11); **etxebizitza sailburu javier** (8); **etxebizitza sailburuak** (14); **etxebizitza sailburuorde** (4); **etxebizitza sailburuorde javier** (4); **etxebizitza saileko** (9); **etxebizitza sozial** (8); **etxebizitza sozialak** (19); **etxebizitza sozialak eraikitzeko** (4); **etxebizitza sozialen** (11); **etxebizitza suntsitu** (15); **etxebizitza suntsitu zituen** (4); **etxebizitza suntsitu zituzten** (7); **etxebizitza zahar** (4); **eusko jaurlaritzako etxebizitza** (62); **eusko jaurlaritzaren etxebizitza** (6); **ez etxebizitza** (4); **gazteek etxebizitza** (6); **gobernuko etxebizitza** (5); **gora etxebizitza** (4); **gure etxebizitza** (5); **hainbat etxebizitza** (18); **hainbat etxebizitza miatu** (4); **herrian etxebizitza** (4); **herriko etxebizitza** (5); **hiru etxebizitza** (5); **jaurlaritzako etxebizitza** (76); **jaurlaritzako etxebizitza eta** (46); **jaurlaritzako etxebizitza sailak** (8); **jaurlaritzako etxebizitza sailburuak** (4); **jaurlaritzako etxebizitza saileko** (4); **jaurlaritzaren etxebizitza** (10); **jaurlaritzaren etxebizitza eta** (4); **jaurlaritzaren etxebizitza sailak** (4); **javier madrazo etxebizitza** (22); **kaleko etxebizitza** (5); **lana eta etxebizitza** (10); **lehen etxebizitza** (7); **lurra eta etxebizitza** (5); **madrazo etxebizitza** (22); **madrazo etxebizitza eta** (14); **madrazo etxebizitza sailburuak** (7); **madrazo jaurlaritzako etxebizitza** (5); **milaka etxebizitza** (5); **nafarroako gobernuko etxebizitza** (4); **ofizialeko etxebizitza** (13); **santutxuko etxebizitza** (4); **solairuko etxebizitza** (5); **zegoen etxebizitza** (4); **zen etxebizitza** (6); **ziren etxebizitza** (4); **zituen etxebizitza** (4); **zuen etxebizitza** (8)

babes ofizialeko etxebizitzak (24); **babes ofizialeko etxebizitzen** (23); **babestutako etxebizitzak** (12); **babestutako etxebizitzen** (7); **bakarreko etxebizitzen** (4); **bere etxebizitzan** (7); **bere etxebizitzan** (7); **bigarren etxebizitzak** (12); **bigarren etxebizitzak dira** (7); **bigarren etxebizitzen** (11); **da etxebizitzaren** (5); **dauden etxebizitzak** (10); **dauden etxebizitzen** (6); **diren etxebizitzen** (6); **du etxebizitzaren** (4); **eta etxebizitzak** (15); **eta etxebizitzaren** (19); **eta etxebizitzen** (21); **etxebizitzak dira** (12); **etxebizitzak edo** (4); **etxebizitzak egin** (5); **etxebizitzak egiteko** (14); **etxebizitzak eraiki** (4); **etxebizitzak eraikitzeko** (10); **etxebizitzak eraikitzen** (4); **etxebizitzak eta** (10); **etxebizitzak ez** (5); **etxebizitzak lortzeko** (4); **etxebizitzan bizi** (7); **etxebizitzan bizi** (7); **etxebizitzan eta** (6); **etxebizitzan eta** (6); **etxebizitzan sartu** (4); **etxebizitzan sartu** (4); **etxebizitzara joan** (4); **etxebizitzaren alokairua** (6); **etxebizitzaren alorrean** (4); **etxebizitzaren arazoa** (25); **etxebizitzaren arazoa konpontzeko** (6); **etxebizitzaren arazoak** (7); **etxebizitzaren arazoari** (8); **etxebizitzaren arazoari aurre** (4); **etxebizitzaren auzia** (4); **etxebizitzaren gaia** (5); **etxebizitzaren inguruan** (5); **etxebizitzaren inguruko** (4); **etxebizitzaren prezioa** (6); **etxebizitzari buruzko** (6); **etxebizitzarik ez** (7); **etxebizitzarik gabe** (6); **etxebizitzen eraikuntza** (7); **etxebizitzen eta** (5); **etxebizitzen inguruan** (4); **etxebizitzen inguruko** (6); **etxebizitzen kontra** (4); **etxebizitzen kopurua** (5); **etxebizitzen prezioa** (6); **etxebizitzen prezioak** (18); **etxebizitzen prezioen** (4); **etxebizitzen salneurriak** (4); **etxebizitzen zerga** (4); **etxebizitzetan eta** (4); **euren etxebizitzak** (4); **familia bakarreko etxebizitzen** (4); **gasteizko etxebizitzen** (6); **hiru etxebizitzatan** (4); **hutsik dauden etxebizitzak** (9); **hutsik dauden etxebizitzen** (5); **lurra eta etxebizitzaren** (4); **ofizialeko etxebizitzak** (24); **ofizialeko etxebizitzen** (23); **palestinarren etxebizitzak** (5); **tasatutako etxebizitzak** (5); **tasatutako etxebizitzek** (4)

---

etxebizitze ik **etxebizitza**.

---

etxedun *iz* etxea duena.

Eta, etxe-jabetzarik ez banuen ere, Rosarekin egoiten nintzenean, **etxedun** sentitzen nintzen, zeren eta etxetxo hura baikenuen, letrak eta estrofak harri eta hormatzat zituena eta arimaren hatsa leihotzat. Joan Mari Irigoien

---

etxegabe *(orobat **etxe-gabe** g.er. eta **etxe gabe** g.er.)* **1** *izond* bizitzeko etxerik ez duena.

Ez nuen gogoan emakume alkoholiko **etxegabe** horri zer putakeria egin nion hogeita hamar urte lehenago. Aingeru Epaltza

Hainbeste zoritxarreko andre **etxegabe**, sala beltz batean abandonaturik. Josu Zabaleta

Han egiten zuten gizon **etxegabeek** lo, ibiltzen ziren lasterka umeak eta, urtean behin, jartzen zituen dendak zirkuko jendeak. Anton Garikano

-Hi, jipi, atera egik bourbon kubata pare bat! -oihukatu diote leihatilatik Anjelen taberna aurrean jesarrita dagoen agure **etxegabeari**. Paddy Rekalde

-Baina oraingoan nire kontu -esan zuen Andreas **etxegabeak**-. Matías Mujika

2 (izen gisa)

Bilboko banketxe batean lotan zegoen **etxegabe** bati eraso diote. Berria - Euskal Herria

Gure artean ere gu baino gaizkiago denik atzemanen diagu, eri kartzelatua den **etxegabea** adibidez. Itxaro Borda

Geltokiko bankuetan, berotasuna aprobetxatuz, *homeless* batzuk zeuden lotan, **etxegabeak**, Estatu Batuetako hirietan sortzen ari zen jende kasta berria. Iñaki Zabaleta

Arratsean **etxegaberen** batek kantak jotzen zituen gitarrarekin lo egin aurretik. Fernando Rey

Erdi Aroan bertan, **etxegabeen** biltoki eta marjinalen gordeleku izan zen Itsasondoko San Juan ermita, orduan Donejakue bideko ospitalea zena. Xabier Mendiguren Elizegi

Azterketaren arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dauden **etxegabeen** %48 atzerritarrak dira. Berria - Euskal Herria

Etxegabeen batzorde bat eratu zen, eta niregana etortzen zen arratsero berri bila. Fernando Rey

Lurra hotza da beti batzuentzat, eta adibidez, eguna joan eta eguna etorri, barrenak ardo petralez erreta lur hutsaren gainean lo egin behar duen **etxegabearentzat**. Iñaki Segurola

Han inork ez zion diosalik ere egiten ondokoari, esnatzean elkarri begiratzen genion, pasadizoko **etxegabe** logaletuok. Fernando Rey

Gizon saindu hori kurri zabilan **etxe gabe** batek hil zuen gehiagorik gabe bere desertuko otoitz-lekuan. Herria

Oraiko **etxe-gabeak** Frantzian ez ote dira frantsesak? Herria

3 *etxegabeko* *izlag/iz*

Etxegabeko jende horiek eraikuntza handian lo egiteko ohitura hartu zuten. Ramuntxo Etxeberri

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) **etxegabekoen** azterketa egin du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan lehen aldiz. Berria - Euskal Herria

---

etxegabetu *izond/iz* etxe gabe gelditua.

Hala ere, bide luzeko miseriarik gorrienean, kalatxorien airea izango zuten lagun iheslari **etxegabetu** haiek. Joseba Sarrionandia

Zer egin milaka hildako, zauritu eta **etxegabetu** utzi dituen zoritxarraz baliatzen denarekin, ezertxo gabe gelditu diren emakumeak bortxatzen dituztenekin? Pako Aristi

---

etxegain *(orobat **etxe-gain** eta **etxe gain**)* *iz* etxearen gaina.

Etxe berria eraikitzen baduzue, babesa jarriko diozue **etxegainari** inguruan; bestela, handik norbait erori eta hilez gero, heriotzaren erantzule egingo zenukete etxea. Elizen arteko biblia

Etxegainean, berriz, beste hiru bat mila gizon-emakume baziren, Sansonen dantza eta jolasei begira. Jose Antonio Mujika

Egun batean, arratsalde aldera, ohetik jaiki eta jauregiko **etxegainean** paseatzen hasi zen. Jose Antonio Mujika

Ez jaitsi **etxegainetik** etxean dagoen ezer hartzera. Askoren artean

Gaua **etxe-gainak** biltzen hasia da. Anjel Lertxundi

Orduan, bera zegoen parean **etxe gaina** zulatu eta zulotik behera eraitsi zuten elbarria, etzana zegoen ohatilan. Elizen arteko biblia

---

etxegile *(orobat **etxegin** g.er.)* *iz* etxeak egiten dituena. ik **arkitekto**.

Mixel Berger, **etxegile** edo arkitektoak, marrazki eta argazki ederrekin erakusten ditu hemengo etxe, eliza, hil harri eta abar; horiek bortzgarren kapituluan lehengo eta oraiko bizi moldea argitaratzen baitute. Herria

Etxegile aberatsen bat eta bere emaztea afaltzera omen zetozen, eta osaba Vernonek eskabide handiren bat espero zuen harengandik. Iñaki Mendiguren

Nik oinarria ezarri dut, **etxegile** trebeari dagokionez; baina beste batek jasotzen du gainean eraikina. Elizen arteko biblia

Deabrua lur gainean dugu ordea hemen Azpilen, **etxegile** diru-goseak new york urdaiazpikoa amets. Joan Mari Irigoien

Bihotz-berritzen hasi zen unetik, Jainkoaren laguntzaz, Frantziskok, **etxegile** zuhur izaki, etxea harkaitz sendoaren gainean eraiki zuen, hau da, Jainkoaren Semearen apaltasun eta pobretasun txit gorenaren gainean. Askoren artean

Etxegile izateak eskarmentua hartzeko balio izan dio Eusko Jaurlaritzari. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **etxegileek bazterturiko harria** (4)

---

etxegin ik **etxegile**.

---

etxegintza *(orobat **etxegintza** g,er,)* **1** *iz* **1** etxe eraikuntza. ik **arkitektura**.

Etxegintzak dirua ekarriko digu. Joan Mari Irigoien

Azken urteetan **etxegintzaren** sektorea izan da ekonomiaren eta enpleguaren hazkundean eragin handiena izan duena. Berria - Ekonomia

Donibane Lohizune Frantzia guziko hiri karioenetarik dela **etxegintzaren** sail hortan. Herria

Etxegintzaren auzia beti biziki minbera. Herria

Gaur hasiko da **Etxegintzaren** Feria eta bertan bilduko dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako **etxegintza** kudeatzen duten agentzia nagusiak. Berria - Euskal Herria

Orain, **etxegintzaren** eromenak bizitegi multzo apain bezain garestia eraikiarazia zuen gainean. Aingeru Epaltza

Etxegintzari buruz nun zer neurri behar den hartu, hortaz ere gogoetatuak dira hautetsiak. Herria

Nikaraguako esperientzia baliatuta **etxegintzako** peontzan probatzekotan nenbilela, amak eman zidan ideia: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Xapitaleko sahetsean den bide bat utzia izanen den egoitza berri bat eraikia duen **etxegintzako** zozietateari. Herria

Errezeloa darie **etxegintzako** enpresaburuen adierazpenei: [...]. Berria - Euskal Herria

Frantziako Gobernuak kontseilu nagusien esku utziko ditu **etxegintzarako** diru laguntzak. Berria - Euskal Herria

Etxegintzatik ere sos ederrak jasotzen dituzte, etxegileei ematen dieten babesaren truke. Gotzon Garate

Orduan bere kontura hasi zen **etxegintzan**, langileak hartu zituen eta haga bat bere aginduak zorrotz betetzen ez zituenarentzat. Pello Lizarralde

Hemen lantegietako nagusiek eta **etxegintzan** ari direnek, beren berezitasunak eta helbideak ezarrarazten ahal dituzte. Herria

Etxegintzan profesional ez diren langileen (bricoleurs) sarrerak industrian eta zerbitzuetan eragin dituen aldaketak etorriko dira, etxekoandrearen partez, ofiziokoa ez den sukaldariak esku hartzeagatik. Edorta Agirre

Etxegintzan bilatu nuen lana. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxegintzan langileek egunero 3 dolar irabazten dute. Gotzon Garate

2 (izenondoekin)

Eraikuntzako lan istripuak erdira jaitsi dira **etxegintza** publikoan. Berria - Ekonomia

Pier Couteaugetariar arkitekta mintzatu da gure lehengo laborari etxez bai eta ildo beretik hedatu den **etxegintza** bereziaz, gauza frango argituz lañoki eta sanoki. Herria

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urteotan garatu den **etxegintza** motaren ondorioz, autoaren menpekotasuna nagusi bihurtu da. Berria - Euskal Herria

Baiona-Angelu-Miarritze hiri elkarteak indarrean daukan **etxegintza** politika ere salatu zuen Abk. Berria - Euskal Herria

Juduen arduradunek **etxegintza**-lanak ongi zeramatzaten aurrera, Ageo profetaren eta Idoren seme Zakariasen hitzak adoreturik. Elizen arteko biblia

Bakoitzak ahal zuena eman zuen **etxagintza**-lanetarako; guztira 488ren bat kilo urre, 2.500en bat kilo zilar. Elizen arteko biblia

Lukasen itzala **etxegintza** kontuetan handia zen, herri apartatu bateko eihera berritu baitzuen bost urtetan, emaitza ikusgarriekin. Jon Alonso

Azken urteetan hainbat borroka izan dira **etxegintza** espekulazioaren karietara. Berria - Euskal Herria

Lehergailu bat zartarazi dute Kanbon, **etxegintza** agentzia baten aitzinean. Berria - Euskal Herria

Israelgo fiskal nagusi Edna Arbelek atzo jakinarazi zuenez, Ariel Sharon lehen ministroa auzipetzeko gomendioa egingo du, **etxegintza** arloko ustelkeria eta eroskeria kasuetan hura akusatzeko froga aski badagoela iritzita. Berria - Mundua

Liskarraren sorburuan joan den abenduan onartu **etxegintza** plana dago. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, betiko lanarekin jarraitzen du NEBko historikoak; **etxegintza** enpresa batetan. Berria - Euskal Herria

Etxegintza parkea eraberritzea, industria guneak osatzea eta bizi kalitatea hobetzea agertzen dira egitasmo horretan. Berria - Harian

Bilboko **Etxegintza** Saileko artxibategia erretzea erabaki genuen. Rafa Egiguren

LKS **etxegintza** eta urbanizazio enpresan egiten du lan Del Campok. Berria - Gaiak

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Goratu ere meza -jantziak eta eliz **etxegintzak**; baita ere santuen irudiak, agurtuz adierazten dutena. Patxi Altuna

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta etxegintzari (3); **etxegintza alorrean** (3); **etxegintza eta** (3); **etxegintzan ari** (4); **etxegintzari buruz** (4)

---

etxegune *iz ipar* etxeak dauden gunea.

Aurten akulatzekoak diren obrak, aspaldian aipu den pizina edo mainutegia, hil-herri berriak eta **etxegune** bat herriko jendeak arrazoinki ukan ditzan etxe-lur batzu. Herria

Etxegune hunekin eta etorriko direnekin bistan da jendetzearen aldetik handituko dela gure herria. Herria

Etxegune hori egitekotan bide berri bat ere egin behar dela harat heltzeko. Herria

Ixtripu lazgarri batean "Laminak" **etxegunean** bizi zen Mayi Ubiriak bizia galdu du. Herria

Pommies Emmy Elbarrunen "Herrixka" **etxegunean**. Herria

Hiriburua izeneko **etxegunean** 35 bizitegi berri izanen dira, urte bat eta erdi barne jendeak bizitegi horietan sartzen ahalko. Herria

Kurutzaldeko **Etxegunean** iragan ditu bere azken urteak, berrikitan eraiki etxe xume batean, bere haur eta arra haurren erdian. Herria

Nahiz **etxegune** berri batzu aintzina egin diren, jendetzea doi bat ttipituz joan da azken urte hauk arte: 6205 jende 1982-an, 5960 aldiz 1989-an. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etxegune bat (3); **etxegune berri** (13); **etxegune berri bat** (5)

---

etxejabe **1** *iz* etxe baten edo batzuen jabea.

Tolosan ezkutatu ziren, baina handik denbora gutxira, **etxejabea** beldurtu zelako edo presaka zirelako, atzera berriz errepidera irtetea erabaki zuten. Joseba Zulaika

Etxejabeak oinak itzuli eta sartu bezalaxe atera zen. Josu Zabaleta

Atzealdean, hiru aldetan, beste atari handi samar baten inguruan zeuden eraikin nagusia, **etxejabeak** bizi zirena, aurrean bi etxebizitza, eta eskuinaldean beste bi, zurezko ate marroi banarekin. Juan Kruz Igerabide

Aspertzen nintzenean, **etxejabeen** etxera joaten nintzen, Yonsuk andrea ikustera. Juan Kruz Igerabide

Baldintza hori jarri ziguan **etxejabea** den kondeak. Txillardegi

Beheko **etxejabearen** irudia gogoratu zitzaidan, bere bulegoan: zakur bat mahukutsik. Matías Múgica

Gero **etxejabeak** afari-merienda ematen die langileei. Berria - Kultura

2 (izenondo gisa)

Sentimendu eta jarrera diferenteak izaten ote dituzten baserritar **etxejabeak** eta maizterrak bere lur-sail eta bizitokiarentzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxean, emakume zahar **etxejabea** bizi zen, bere alaba elbarri Yonsuk-ekin, eta alabaren senarrarekin. Juan Kruz Igerabide

---

etxejaun *(**8** agerraldi; cf **etxe 9 115** agerraldi) iz* etxeko jauna.

-Eta orduan noiz arte itxaron beharko dut, adiskidea? -esan zuen **etxejaunak**-. Matías Múgica

Nire **etxejauna**, lanbidez postako funtzionarioa, aski goraki ari zen hizketan kanpotarrarekin pasilloan. Matías Múgica

Ez dut gure aitonaren eta Zabaletako **etxejaunaren** arteko loturarik ez antzik ikusi nahi ordea. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxejaunari Beeltzebul esan badiote, zer ez ote esango haren etxekoei? Elizen arteko biblia

Urte asko lehenago, nire **etxejaunagana** ere agertu zen nire errenta pagatzera. Matías Múgica

---

etxekalte **1** *izond* bere jokaerarekin bere etxearen hondamendia ekartzen duena.

Etxean lana gogor egingo duen semea behar dute eta ez **etxekalte** den alabarik. Gotzon Garate

Militar guztiak kartazale amorratuak eta **etxekalteak** zirela uste baitzuen. Jose Morales

- **Etxekalte** hezigaizto horrek denon lotsagarri utzi gaitu. Patxi Zubizarreta

2 irud/hed

Gaztelania bezalako hizkuntza finkatu batean aberasgarri litzatekeena **etxekaltea** izan liteke geurean, eraginkortasuna edo medioen eskasia bezalako arrazoiengatik. Anjel Lertxundi

Pentsa dezakegu Oteiza ari zela -noiz arte?, noiz arte?- euskaldunok geure gorabeherez izan dugun utzikeria kronikoaz eta hemengo burgesia **etxekalteaz**; ari zela hemengo buruzagitza kulturalaren faltaz. Anjel Lertxundi

Batak zein besteak ez du zer ikusirik gurean bizi izan dugun kultur tradizio **etxekaltearekin**. Anjel Lertxundi

Larria iruditzen zaigu eta beren burua ezker abertzalearen korronte gisa definitzen duten heinean **etxekalte** ari dira. Berria - Euskal Herria

Libertyko Vicioso, Heras eta Koldo Gil izan ziren indartsuenak Santa Agedan; Laiseka Zubeldia nagusiaren **etxekalte** aritu zen. Berria - Kirola

---

etxekandere *(orobat **etxekoandere** g.er.) iz ipar* etxekoandrea.

Nor ziren etxeko nagusi edo **etxekandereak**? Ondoko eginak ziren etxeko seme edo alaba, eta, beste etxe bateko kaiet batekin ezkontzen zirenak, beren etxondoan. Herria

Luixa Daguerre **etxekandereak** itzulikarazi du bere errota erakutsiz errota hori nola erabili zen uraren indarrararekin eta zer gisaz irina heldu zen xurrutan beheiti. Herria

Maritxu Daguerre Mixelene Mantxeeneko **etxekanderea** pausatu da Larrazkenan 87 urtetan. Herria

Iragan igandean ehortzi dugu Anita Mendibil, Izpegi xekaleeneko **etxekanderea** 81 urtetan pausatu dena Kanboko eritegi batean. Herria

Badu deia zenbait egun, Jacqueline Agesta Ñakeroineko **etxekandereak** utzi gaituela Jainko Aitaren ganat joaiteko: 70 urte zituen. Herria

Leon Marin auzapez jarririk, axudant bat bazuten eskas eta kargu hortarako hautatu dute Odile De Coral,Urtubia jauregiko **etxekandere** gaztea. Herria

Goizeko freskuran Erratzu Etxebeltzean ginen, Carmen Iturralde **etxekandere xaharra** doi-doia orduan jeikia. Michel Oronoz

Teuleriko **etxekandere** xaharra, Marie Errecart, bizi izan den bezala, ixil-ixila itzali zauku 86 urtetan. Herria

Ganden ilabetearen 15ean larunbatarekin Carricaburu Pierre eta Aña Motxoko nausi **etxekandereek** ospatu dituzte beren urrezko ezteiak. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etxekandere xaharra (24); **etxekandere xaharrak** (7); **etxekanderea pausatu** (3)

---

etxekandre ik **etxekandere**.

---

etxeki ik **atxiki**.

---

etxekide *iz* etxe berean bizi diren pertsonetako bakoitza.

Bertan, Uribek, bere ohiko sotiltasunaz, istorio triste bat kontatzen digu eraikin berean bizi diren **etxekideen** arteko harremanez Loroak karranka latzak bota zituen, **etxekideei** abisu emateko bezala. Harryk, Ronek eta Hermionek beren **etxekideei** jarraitu zieten Gryffindorreko dorrerantz. Iban Zaldua

---

etxekoandre *(ETCn **2.701** agerraldi; orobat **etxeko andre** ETCn **255** agerraldi eta **etxekandre** ETCn **14** agerraldi)* **1** *iz* etxeko jaunaren emaztea.

Ni, **etxekoandre**, Karakulianbro erraldoia nauzu, Malindrania uharteko Jauna, ezohiko borrokan Don Kijote Mantxakoak bentzutu nauena. Patxi Ezkiaga

Zaldun batzuetatik besteetara doan aldea ikusi dezazun, esan dizut hau guztia, **etxekoandre**. Patxi Ezkiaga

Emazterik ezean, neskatikoa zen, bere 13 urtetan, Garrüzeko **etxekoandre**. Aingeru Epaltza

-Hurrengoa arte, **etxekoandre**, eta eskerrik asko -hots egin zioten Ligugnanakoek ate alartzetik-. Josu Zabaleta

Misterio hutsa da nor izan zitekeen neskame lorezale hori, Marie-Émilie Coulomb Etxauzeko **etxekoandrearen** ganberako neskame hori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kantoiaren bueltan bizi den begirada gozoko **etxekoandrea**. Xabier Olarra

Nola gogoratu dezakezu hori, **etxekoandre**? Monika Etxebarria

-Jainkoak egunon, **etxekoandre**! Pello Lizarralde

Bi emakumeak gosaltzera jaitsi zirenean, burruntzalia pertza batean sartu, eta txokolatea katiluetan banatzen ari zen ostatuko **etxekoandrea**. Anjel Lertxundi

Benta bateko **etxekoandrea** naiz, hiru bat orduko bidea dut haraino, eta denbora doia gelditzen zait kanpaiek Jainkoaren eguna bukatu dela adierazi bitartean. Anjel Lertxundi

Hoteleko **etxekoandreak** prestatu didan iratzargailuak ohetik punpeka jalgiarazirik, banoa. Piarres Aintziart

Irekitzen dio **etxekoandreak** atea, eta mutilak azaltzen dio motorrez zihoala istripu izan eta min hartu duela. Joxerra Garzia

Etxekoandreak ardo xuri bat atera zigun. Josu Zabaleta

Etxekoandrea emakume ilebeltz, azal zuriko bat zen, aurpegia ia perfektua zuena. Josu Zabaleta

Etxekoandrea bere zopa-katiluaren aurrean eseri zen; gonbidatuari etxeko jaun-andreen erdian jartzeko eskatu zioten, eta zerbitzariak ezpainzapiak lotu zizkien haurrei lepo inguruan. Jose Morales

Etxeko jauna, **etxekoandrea** eta inudea lasterka joan ziren kolonia-uraren bila, eta Txitxikov alde guztietatik garbitzen hasi ziren hirurak. Jose Morales

Etxekoandrearen senarra astakirten bat denez, zilegi zaie bi maitaleei ezkontzaz kanpoko harremana. Josu Zabaleta

Kafe bat eskatu nion **etxekoandreari**. Anjel Lertxundi

Etxekoandreari lotarakoak egiten laguntzera joan zenean. Jon Muñoz

Egunez **etxekoandreak** eltze artean lanpetuta ibiltzen dira, baina ilunabarrean askotan agertzen zitzaizkion Taibeleri lagunak berriketan aritzera. Koro Navarro

Etxekoandreak azaldu zidan ura garbi irten artean eduki behar nuela iturrian. Juan Kruz Igerabide

Etxekoandreak Frantzian lau ordu ematen zituen egunero sukaldean, 1950 urtean; egun, ordubete eskas. Edorta Agirre

Etxekoandreen elkarteek Marta dohatsua dute zaindari. Pello Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

-Sinets iezadazu **etxekoandre** eder horrek, zorionez beterik zaudela, zure gaztelu honetan niri ostatu eman didazulako. Patxi Ezkiaga

Gaur goizean, gazteen hondakinak aurkitu dituen **etxekoandre** gajoak zalantza egin du: DYAkoei ala ALFUSekoei, ez daki nori deitu. Patxi Iturritegi

Hona hemen gure arteko **etxekoandre** klasiko ganoradun batek, oro har, familiaren elikadura dela eta, izan dituen zereginak: [...]. Edorta Agirre

Izan ere, gozoa zen pastela, eta are gozoagoa iruditu zitzaion **etxekoandre** zaharrarekin izaniko iskanbila eta tirabiraren ondotik. haserre bizian ziren norbait ausartu izanaz beren **etxekoandre** bertutetsuari makurrik egitera. Jose Morales

Bazen han **etxekoandre** ospetsu bat, eta bere etxean bazkaltzera sarrarazi zuen Eliseo. Elizen arteko biblia

Ahal bezain lasai gosaltzen ari ziren tabernako **etxekoandre** jatorrari esker. Aitor Arana

Nabari zen **etxekoandre** maratzak zirela eta bazekitela gauzak ondo antolatzen. Jose Morales

Okinekin batera, inguruetako obretako langileak, gudarosteko gudariak eta **etxekoandre** goiztiarrak ere joaten ziren iturri beretara. Askoren artean

Lehenagotik ere ez zeukan fama on-onik **etxekoandre** alargun hark. Gotzon Garate

Atalasera agertu emakumeak iduritzenago zuen **etxekoandre** lanpetua, nik gogoan erabili bezalako sorgin, igarle edo belagilea baino. Aingeru Epaltza

Oso **etxekoandre** garbi eta txukuna zen, eta hori biziki estimatzen zen herrian. Joseba Urteaga

Hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, **etxekoandre** goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, aberats okitua, burokrata grisa. Jose Morales

Ostatuko indiar **etxekoandre** txirikorda belzdunak ikerlariak ginela uste zuen, nonbait. Joxe Austin Arrieta

Brooklyngo **etxekoandre** ezkondu zoriontsu bat bi umerekin eta beharbada beste baten esperoan. Oskar Arana

Itxura guztien arabera, egundoko **etxekoandre** puska omen du. Mirentxu Larrañaga

3 (hitz elkartuetan)

Juliak eta biek beti agertu izan zuten harrotasun pixka bat beren ahizpa serio eta **etxekoandre**-itxurakoaz. Irene Aldasoro

-Horixe, noski, hitz egin dezagun tximino horretaz -erantzun zion neskame- **etxekoandreak**, haserretzeko beti prest-, a zer galera betiko galduko balitz. Josu Zabaleta

Etxekoandre jendea imajinatzen nuen nik entzule, gure ama tarteko. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere etxekoandrearekin (3); **bere etxekoandrearen** (3); **dio etxekoandreak** (5); **edo etxekoandrea** (3); **esan zion etxekoandreak** (3); **esan zuen etxekoandreak** (20); **eta etxekoandre** (16); **eta etxekoandrea** (7); **eta etxekoandreak** (9); **eta etxekoandrearen** (3); **eta etxekoandreari** (4); **etxekoandre batek** (3); **etxekoandre guztiak** (3); **etxekoandrea eta** (7); **etxekoandrea eta iloba** (3); **etxekoandrea sartu** (4); **etxekoandrea sartu zen** (4); **etxekoandreak erantzun** (3); **etxekoandrerik ezean** (7); **hango etxekoandre** (3); **ostatuko etxekoandrea** (4); **ostatuko etxekoandreak** (5); **ostatuko etxekoandrearen** (3); **zen etxekoandre** (4); **zen etxekoandrea** (5); **zion etxekoandreak** (9); **zion etxekoandreari** (3); **zuen etxekoandre** (3); **zuen etxekoandreak** (24)

---

etxekoandretu, etxekoandre(tu), etxekoandretzen da *ad* etxekoandre bihurtu.

Ximurrarekin ezkondu, **etxekoandretu** eta amatu zenez geroztik biribiltzera emandako gorputz eta begitarte horietan deus guti gelditzen zen hogei urte bete gabean ezagutu nuen neska mehakil eta bisai-hezurtsutik. Aingeru Epaltza

---

etxekoandretza *iz* etxekoandre egoera.

Ilargiarena ez dago gure egutegiko egunekin finkatzerik, hori ilargitarian beharko genuke erreparatu: hori hor baitabil derizkion eran, aske eta libre, hor goiko **etxekoandretzan**. Pello Zabala

Pozarren ibili da azken egunetan, haurra jaio zenetik ez bezala libre, bere gogara, ia nahi duenean esnatu eta nahi duenean oheratu, gosari-bazkari-askari-afari kate beti-berdinetik eta **etxekoandretzari** egotzi ohi zaizkion bestelako zeregin amaigabe kasik guztietatik askaturik. Xabier Mendiguren Elizegi

---

etxekoi *izond* **1** etxeari dagokiona; etxe girokoa.

"Larrazkeneko-Jaialdia" euskal etxearen urteburukari, buruilaren 18an, ospatua izan da, besta **etxekoi** goxo batekin. Herria

Gogo handirik gabe ahoratu nuen Madame Bouthierrek maneaturiko afari goxo eta **etxekoia**, haren begirada amatiarraren pean. Alberto Ladron Arana

Giro **etxekoi** eta beroa. Urtzi Urrutikoetxea

Atzerrian hungarierazko doinu **etxekoiak** entzuteak sorrarazten duen ustekabeko poza. Urtzi Urrutikoetxea

2 etxean egoteko joera duena. ik **etxezulo**[1].

Alaba **etxekoia** eta lasaia izatea gustatuko litzaidake, ez oraingoak bezalakoa, girgileriak, farfailak eta gerritxoak besterik ez dute eta. Lopez de Arana

Hemen, ostera, beste era batean zebiltzan, laxoago, nolabait -igarri ahal izan nuenez- **etxekoiago**. Urtzi Urrutikoetxea

Nahiko gaizki, **etxekoi** samarra naizelako, baina Belgikako talde batean korritzen ari naiz, eta hasieratik nekien zein ziren baldintzak. Berria - Kirola

3 (adizlagun gisa)

O, zuk ez dakizu zein ondo eta **etxekoi** sentitzen den bat, bararentzako pisu bat lortzen duenean. Lopez de Arana

---

etxekoikeria *iz* etxekoitasun gaitzesgarria.

Izugarrizko **etxekoikeriak** mendean hartuta zeukan emaztea eta gai zen koska eta atzamarka ere babesteko huraxe. Mirentxu Larrañaga

---

etxekoitasun *iz* etxekoia denaren nolakotasuna.

Orduan, senarra berriro ondotik igaro zenean, gora begiratu eta lasaitu egin zen hondamena ezkutatua ikusirik; **etxekoitasuna** garaile. Anton Garikano

---

etxekojaun ik **etxe 6**.

---

etxekojauntu, etxekojaun(tu), etxekojauntzen da/du *ad ipar* etxeko jaun bihurtu.

Garcia Ardantzekoak aita Okoztarra zuen, ofizio guziak eginak zituen eta ez aberats haundi haietarik izanki, orai **etxekojauntu** zen, Oliteko ondoan lurralde ederrak bazituen, ogi, mahats, oliba, fruitu, emaiten zutenak eta horietaz semeak arduratzen ziren. Michel Oronoz

---

etxekolan ik **etxe 7**.

---

etxekon **1** *iz* etxe bereko aldameneko etxebizitza.

Behiak jetzi egin behar zirela, ahuntzak etxera ekarri, lastoa metatu, ximaurra eraman, albaitariari deitu, apaizari gazta bat bidali, **etxekonean** lagundu, sekretarioari eskakizuna egin, alkateari zergak ordaindu. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurrengo egunean, **etxekoneko** Canuto Ugalderi burua txikitu zioten kolpeka. Berria - Euskal Herria

2 ***etxekoneko*** *iz* etxe bereko aldameneko etxebizitzako pertsona.

Sarraila giltzaz zulatu eta irekitzean, **etxekoneko** ipurtandia kantari sumatu zuen. Joxemari Urteaga

Bat gaizki esaka hastea basta, **etxekoneko** guztiek marmarka jarraitzeko. Arantxa Iturbe

Hemengoetan, lehen solairuko **etxekonekoa**. Joxerra Garzia

Ez zitzaizkigun berrogeita hamar metro ere faltatuko beheko bihurgunera iristeko, eta hara non aurreratzen gaituen Joxe Marik, **etxekonekoak**, bizikletan. Juan Kruz Igerabide

Gure **etxekonekoak** Martineau ziren deituraz. Jesus Mari Mendizabal

Ezkontzen al zen inor **etxekonekoekin**? Xabier Mendiguren Elizegi

Maiztertza baino interesgarriago iruditu zait beti -are gehiago baserri eta landa-lurren errenta aspalditik izozturik dagoenez gero- beste fenomeno bat: **etxekonekoarena**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

etxekoneko ik **etxekon 2**.

---

etxekoratu du *ad* **

Gaur egun ez dakit zer egin beharko den katua **etxekoratzeko**. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

etxekotasun *iz* etxekoa izateko nolakotasuna, etxekotzat hartua izateko zertzelada.

Emakumeekiko **etxekotasuna**, gizon santuak ere desbideratzen dituen pozoi eztitsua. Askoren artean

Teknologiaren apologetek, saskibaloia bizkortu, ikuskizuna hobetu eta dibidenduak biderkatu egin direla esaten dute, baina, baita xarma eta **etxekotasuna** galdu ere. Berria - Kirola

Demoek unibertsaltasuna eta **etxekotasuna** uztartu dituzte. Txema Ramirez de la Piscina

Frantziskok anai Leoni agertzen dion **etxekotasunak** ederki erakusten du nola lagundu behar zaion atsekabean nahiz ilunpean dagoenari. Askoren artean

Guk -alegia, anai-arrebok- **etxekotasun** handia genuen izeba Matilderekin, amaren ahizpa izanik, berak hartu baikintuen gure gurasoek hegazkin-istripua eduki eta umezurtz geratu ginenean. Jon Alonso

Ferranjoren ama aldiz Ezteberenzubitarra, hortako aldarean kausitzen zen bigarren apeza Ferranjoren kusia izanez, **etxekotasunean** iragan da ehorzketa. Herria

-Pasa naiteke? -aurreratu zen Adela, **etxekotasunez**, nik erantzun zain egon gabe. Juan Kruz Igerabide

Alaitasun handia sentitzen zuen Kristoren itxura adeitsuaren aurrean, halako **etxekotasunez** agertzen baitzitzaion eta halako onginahiz begiratzen baitzion. Askoren artean

---

etxekotresna ik **etxe 8**.

---

etxekotu, etxeko(tu), etxekotzen **1** da/du *ad* etxeko bihurtu.

Bi munduren artean gelditu zen, ez batean eta ez bestean **etxekotu** gabe: irteerarik gabeko zurrunbilo moduko batean. Xabier Olarra

Azkar samar ez ote genbiltzan bota zidan amak berriro, baina leihoa zabalduta sartzen den aire freskoaren antzera hartzen zuen "bere erraintxoa", eta laster **etxekotu** zen Idoia. Juan Kruz Igerabide

Ez da gauza erraza izaten kanpoko katu bat **etxekotzea**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egia erran, arrunt **etxekotuak** ginen, noiz eta ere gure soldadugoari bukaera eman baitzioten, denbora ixil ixila joan ondoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Izeba Marge **etxekotuz** zihoan neurrian, Harry ia irrikatzen hasi zen etxe hartan, izeba hura gabe, izan ohi zuen bizimodua. Iñaki Mendiguren

Nola ibai harro batek pisudunak hondoratu eta pisu gabeak azaleratzen dituen, hala Praga kanpotarrak **etxekotu** eta etxekoak erbesteratu egin dituen hiria da. Felipe Juaristi

Logika berean, pentsatzekoa da **etxekotu** egin beharko genituzkeela kanpokoak. Iñigo Aranbarri

Lehengo ohitura zaharrek erakusten dute **etxekotu** nahi den katua zaku batean gordeta eraman behar dela etxe berrira, eta askatu aurretik zazpi bira eman behar zaizkiola etxeko laratzaren azpian, katuak etxea onar dezan eta bertan gera dadin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hara non doan Iparraldeko dontzeila gerlaria **etxekotu** duen Jauna! Agustin Otsoa

Ikusi duzun *baberruma* hori, berriz, *fava romana* delakotik **etxekotua** omen dugu. Patziku Perurena

Usario horri jarraiki, esan liteke euskarak *tobera* **etxekotu** duela, irudi geometriko hori nonahi (burniola, karobi, errota) ageri dela ere, eta lanbide horien inguruko festa-grinak eraginik edo, hortik atera zela gero *tobera* hitza, inbutu gisako musika tresnaren batez (toberaz) lagunduriko koplagintza xelebrea izendatzeko. Patziku Perurena

Nola ibai harro batek pisudunak hondoratu eta pisu gabeak azaleratzen dituen, hala Praga kanpotarrak **etxekotu** eta etxekoak erbesteratu egin dituen hiria da. Felipe Juaristi

2 (era burutua izenondo gisa)

Ez ote ziren alabaina etxekoak, edo behintzat **etxekotuak**! Itxaro Borda

Oilo **etxekotuaren** arbaso den *Gallus gallus* espeziearen kodea da argitu dutena. Berria - Gaiak

Benetako animaliez ari gara, jakina, ez ia gure hurko edo senide bihurtu ditugun animalia **etxekotu** eta etxe-barrukoez; horiek gu bezalaxe dira ondoezten, gaixotzen, ergeltzen, deprimitzen eta "hiltzen". Iñaki Segurola

Bildu eta jan, arbaso zahar arrotz **etxekotu** haien ohoretan. Patziku Perurena

---

etxekotze *iz* etxeko bihurtzea.

Azkenik, apurka-apurkako ohitze edo **etxekotze** moduko bat ere gertatzen ari zela ematen zuen. Xabier Olarra

Nekazaritzaren eta animalien **etxekotzearen** aurretik, gizakiok ez genekien koitoa eta haurdunaldia lotuta zeudenik; horrenbestez, ez genekien gizasemeak ezer ikustekorik zeukanik ernalketarekin. Luis Elberdin

Euskaraz irakurtzen trebatzea, emeki emeki hitz berrien **etxekotzea** eta euskararen erabilera errextea dira finkatu xedeak. Herria

---

etxelagun *iz* etxe berean baina beste bizitegi batean bizi den pertsona.

Osaba Kamil harturik, haren kide eta **etxelagun** baitzen, elkarrekin joan ziren emakumeari ikustaldi bat egitera. Patxi Zubizarreta

Emilioren aitak hain itxura errespetagarri eta autoritatetsua zuen, ezein **etxelagun** ez baitzen ausartu debekatzera. Juan Garzia

Pasatzen hasten denari **etxelagunen** batek tiro bat eman diezaiokela, eta ez zaiola ezertxo ere pasako (bizilagunari, noski). Pako Aristi

---

etxelaguntza *iz* emakumezko bati etxera laguntzea.

Ninik, galtzazpikoak jartzen ari zen bitartean, **etxelaguntza** egin zion Ramuscello-ko neskarena aipatzen zien, eta Eligiok, ez baitzion sinesten, adarra jotzen zion... Josu Zabaleta

---

etxelartar ik **etxalartar**.

---

etxeleku ik **etxaleku**.

---

etxelur *iz ipar* etxeak eraikitzeko lurra.

Bixtan da Zanpantzar itsusiari deus ez diotela barkatu! Zernahi bekatu ezarriz haren bizkar: **etxelur** eta bizitegien kariotzetik haste itsasoaren eta ondartzen zikintze hortaraino! Herria

Hor izanen dira salgai berrogoita-hamar **etxelur**. Herria

Nahiz ez den **etxelurra**, nahi du beretzat eta bere ondokoentzat atxiki, bere aitatxiren aitatxik zuela beretua eta familiak ez duela hola despeitu behar. Herria

Etxelurren prezio soberakinak. Herria

---

etxemin *iz* etxearekiko mina.

Etxeminak jota dago Leire, baina ez du agertu nahi; malkoak barruan irentsi eta irribarre zabal batekin hartu ditu gurasoak bisita-egun honetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Nostalgia, benetako nostalgia, islatzen jakin duen poeta bat Joseba Sarrionandia izan da -amari eskainitako poema batean ezkutatuta, sentimendu hori oraindik trinkoagoa sumatzen da, agian- oraingoan **etxemina** deitu beharko genuen sentimendu baten adierazgarri: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure paseoa gozatzen du hego-haize honek, baina **etxemina** sartzen dit hezurretaraino: atariko lizarra ikusten dut, aurrean daukadan hormaren ordez. Jokin Urain

Hego haizeak lasto printzaren batzuk dakartza patioraino eta **etxemina** ernatzen du erraietan eta gogoan. Jokin Urain

Hego haize puntu honek herrimina, **etxemina** sortzen dit. Jokin Urain

---

etxeño *iz* etxetxoa.

Etxeñoa, bide zaharraren bazterrean, ahantzirik egon zen. Elena Touyarou

Parisetik Irisarrirat jina zen bere andrearen herrirat eta bizi zen "Airoski" egina zuten **etxeñoan**. Herria

Lionel Jospin gobernuburua Ré ugarterat joana da, han baitu **etxeño** bat erosia duela zenbait hilabete. Herria

Auzapezak dio, ikusiz lur-antolaketa zertan den Hendaian, etzuela eta ez duela debekatzen ahal gisa hortako **etxeño** batzuen egitea toki hortan. Herria

Duela zonbait urte, Korsikan, su eman zioten gauaz jatetxe gisa baliatuak ziren Itsas-bazterreko **etxeño** batzueri, frantsesez biziki polliki "paillotes" deituak, lastoz estaliak izan balire bezala. Herria

Elkartea laster handitu zen eta zonbait urteren buruan, bere biltokia eskasegia izanez, Ziburunjarri zen, zubiaren puntako **etxeño** batean. Herria

Behin-behineko denda oihalezkoak utzi eta **etxeño** txukunetan biziko dira, garbitasunez, nehoren lotsarik gabe. Xabier Montoia

Hatsaren eskas, baina ongi heldu zarete herriko lehen **etxeñoetaraino**. Xabier Montoia

---

etxeondo *iz* oinetxea. ik **etxondo**.

Poeta haren balentria bakarra: argentinar **etxeondoak** -*conventillo* delakoak- eskaintzen zituen ahalbide erretorikoez jabetzea. Juan Garzia

Askotan errepikatzen nion gauza bera Koxmeri, **etxeondoko** tabernako zerbitzari bati, honi buruz eztabaidan hasten ginenean. Joxemari Iturralde

Hontzaren kanta gertuko **etxeondokoa**, ordu sano gauekotan izanez gero, albiste ona zen: haur baten jaiotza edo. Pello Zabala

---

etxeorde *(orobat **etxorde** g.er.) iz* etxe modukoa, eskuarki bizitzeko erabiltzen ez dena.

Adrianen eta Josebaren etxeez gainera, hamar bat estalpe edota **etxeordek** osatzen zuten bere muina; ingurumarian, berriz, ibaiaren edo errepidearen albo bietan eraikitako ohol-gaztelu eta enbor piloak zeuden. Bernardo Atxaga

Taberna batean afaldu eta gero, denak ere muturra berotuta, **etxeorde** batetik gurdi bat atera, Remigio organista esku-soinu eta guzti gainean eseri, lagun taldekoa baitzuten, eta auzoan aurrera eta atzera ibili zuten. Juan Kruz Igerabide

Baserriaren aurreko **etxeorde** batean sartu genuen autoa. Inazio Mujika Iraola

Baratzeko tresnak gordetzeko erabiltzen zituzten **etxeorde** haiek, bai eta animaliak hazteko ere. Juan Kruz Igerabide

Esan zioten ekaitzak lanabesen **etxordea** hautsi zuela eta habeak konpondutakoan erakutsiko ziotela. Juan Garzia

Ez nintzen gauza zutik jartzeko, baina larritasunak kemenik aski eman zidan lurrean narraska abiatzeko, **etxeordetik** irten eta kalean zehar arrastaka jarraitzeko, etxe aldera, ustez. Juan Kruz Igerabide

Etxe handi bat zegoen bertan, **etxeordez** inguraturik; **etxeordetan** bizi ziren zerbitzariak. Juan Kruz Igerabide

Ni ez nengoen, ordea, atzera egiteko; oroimenean, gero eta gardenago ageri zitzaidan hautsez estalitako liburua, Marroren **etxeordeko** ganbaratxoan. Juan Kruz Igerabide

---

etxeorratz ik **etxe 9**.

---

etxeosteko *izlag* etxe atzekoa.

Zu etxean egon edo **etxeosteko** patioan, gutakoren bat etxeratzen den arte. Koro Navarro

Gero **etxeosteko** hitza ikusten dut. Koro Navarro

---

etxepe *(orobat **etxape**)* **1** *iz* etxearen behealdea.

Etxetik alde egin nuenetik, aski nituen jatorduetarako mahaia, **etxepe** bat eta ohe ahalik txukunena. Anjel Lertxundi

Etxe eta **etxepe** guztiak betetzen zituzten; horrela pilatuak heriotzak hainbat errazago metatuko zituen. Xabier Amuriza

Egañatarrak aberatsa k ziren, ordea, hainbat lur eta etxeren jabeak, eta gaur Anjel Lertxundi bizi den Villa Teresitako **etxepe** horretan omen zen, garai batean, familiaren beste egoitza bat, bere zurezko ate gorri, huntzadun hesi eta guzti. Xabier Mendiguren Elizegi

Hara nola aurki daitezkeen **etxepe** berean, inoiz ondoz ondoko ateetan, biokimikari bat eta genetista bat, elkarrekin hitz egiten ez dutenak. Juan Garzia

Eraikin bat hustu dute Berriozarren **etxepeak** su hartu duelako. Berria - Euskal Herria

Ordu erdiren buruan **etxepean** izanen gintuan eta jadanik otoitzean ari ninduan, garajean auzo berankorren batekin topo ez egiteko. Aingeru Epaltza

Ehiza-eskopeta hartu zuen horretarako, eta, bere buruaren kontra tiro egiteko zegoela, bat-batean oroitu zen, egunero, bazkalondoren, **etxepeko** tabernan jokatu ohi zuen mus partidaz. Josetxo Azkona

Laster aurkitu zioten konponbidea: **etxepeko** dendan utziko zituen itzulgaiak CATeko mandatariak. Iñaki Iñurrieta

Babarrun pote iraungipen datarik gabeak salduz geroztik, beldurrak airean zebilen **etxepeko** dendaria, gazteek salaketa jarriko ote zioten. Iñaki Iñurrieta

Astelehena zen; ziur nago, bezperan **etxepeko** kutxazain automatikoa hirugarren aldiz erre zutelako, eta igande gauetan gertatu ohi zirelako horrelakoak. Ramon Saizarbitoria

Bulegariaren aitzinera agertzerakoan zer jarrera erakutsiko -urruna? adiskidetsua? konplizea?- burua bero-bero neukala iritsi nintzen haren **etxepera**. Aingeru Epaltza

Ertzaintzari Otegiren **etxepetik** ez mugitzeko agindu dio, eta alde egiten badu «berehala» jakinarazteko, «ebazpen judizial proportzionatu eta egokia erabaki ahal izateko». Berria - Euskal Herria

2 etxea, teilapea.

Ez da lehen aldia **etxepe** adeitsu honetan, mahai adeitsu honen inguruan elkartzen garena. Irene Aldasoro

Aitortu zidan goiz hartan **etxepeko** neskame bat gurutzatu zuela eskaileretan lore sorta bat eskuan zeramala, eta txantxetan senargaiarentzat al ziren galdetu zionean, hark erantzun ziola ea ez al zekien Ama Birjinaren hilean zeudela. Ramon Saizarbitoria

3 ***etxepeko*** *iz* etxe berean bizi dena pertsona.

Hori herri osoak daki eta **etxepekoak** ere hor daude egia esateko. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere etxepean (3); **etxepe berean** (4)

---

etxepetxo *iz* etxepe txikia.

Orduan ez nekiena, orain susma dezaket, arestian seinala dudanez, Gandariasen eskua egongo zela **etxepetxo** hartan. Pello Zabala

---

etxepurdi *iz* **

Eskolan eskuz hasiz ta berdin ere **etxepurdietan**. Herria

---

etxerarazi, etxeraraz(i), etxerarazten du *ad* etxera joanarazi.

Bizirik bazegoen, Leizer ziur zen aurkitu eta **etxeraraziko** zuela, edo dibortzioaren paperak bidalarazi bestela. Koro Navarro

---

etxeratu, etxera(tu), etxeratzen **1** da *ad* etxera joan.

1941ean **etxeratu** zen osaba Gabino, baina ez luzarorako. Jokin Urain

Etxeratu eta lau pastilla irentsi zituen, Cutty Shark txorrotadarekin batera. Harkaitz Cano

Steffi Prokop **etxeratu** zenean, egongelan aurkitu zuen Stanislaus Demba, zain-zain. Anton Garikano

Big Lanniek, **etxeratu** zenean, lurrean etzanda aurkitu zuen Raymond, gelako izkina batean zokoratuta, auhenka eta zinkurinka. Mirentxu Larrañaga

Lan egiten zuen zerrategitik **etxeratu**, gosaltzeko saltxitxa batzuk hozkailutik hartu, eta Four Rouses botila bat zabaldu zuen. Koro Navarro

Arratsalde batez, Martin andrearenetik **etxeratu** zenean. Mirentxu Larrañaga

Txangotik **etxeratu** ondoren, Trois-Frères kaleko arotza etorrarazi zuen. Jon Muñoz

Berlusconik agindu zuen Italiako soldaduak urte amaieran **etxeratuko** zirela. Berria - Harian

Ongi baino hobeki ulertu dut ez zarela une batez baizik **etxeratuko**, okasioari egoki dagozkion beztidurak janzteko, eta berehala joanen zarela zeure garaile ibileretan berriz ibiltzera. Jon Muñoz

Ez dakit eme deabru horren kontra egin nituen arneguak entzunak izan ziren, baina **etxeratu** ginelarik ohean kausitu genuen. Jon Muñoz

Etxeratu nintzelarik, jakinarazi zidan Tourvel andrea goizeko hamaika orenetan jalgia zela alabaina, gelaria lagun. Jon Muñoz

Anaiaren neska gurekin zegoenetik egun bakar batean ere ez nintzen afaltzera **etxeratu**, eta ez nuen nabarmendu nahi nire ohiturei halako tornua emanez. Aingeru Epaltza

Etxeratu nintzaionetik, hiru-lau muturraldi baizik ez zen piztu gutartean; denetan, ama solas. Aingeru Epaltza

Hark orduan irribarre egin zuen, eta Denverren bihotzak saltoka ibiltzeari utzi eta eseri egin zen, arinduta eta trankil, **etxeratu** den bidaiaria bezala. Anton Garikano

Ezin naiz joan, Hector **etxeratu** arte. Xabier Montoia

Zoritxarrez, bihotzekoak jotzen du, **etxeratu** eta laster. Berria - Kultura

Potzolok aholkatu bezala, pilula bat ahoratu nuen **etxeratu** bezain sarri. Aingeru Epaltza

Aita, **etxeratu** orduko, ohean sartu zen eta ez zuen handik mugitu nahi. Daniel Landart

Aitaz akordatzen zen, zelan **etxeratzen** zen ilunabarrean, aitzurra edo sega sorbaldan, burua makur. Xabier Montoia

Batzuetan, fabrikatik goiz **etxeratzen** nintzenean, Rosaliaren zer edo zer errezitatzen saiatzen zitzaidan Carmiña, baina ezin izan nituen poema horiek luzaroan jasan. Iban Zaldua

Etxeratzean, leiho ondoan topatu nuen ama, negarrez, gutun bat eskuetan zuela. Harkaitz Cano

Gauean, **etxeratzean**, ez zen berehalakoan oheratzen. Karlos Zabala

Eguberri izanez alaina, elizatik **etxeratzean** Maria harrapatu zuten, aitaren adineko lehengusu erdi itsua. Itxaro Borda

Hamabiak pasatxo ziren **etxeratutakoan**. Unai Iturriaga

Etxeratu bezain laster, berriz, amonarengana jo zuen Sarak, lagun minari gertatua kontatzera. Joan Mari Irigoien

Xingola denda txiki bat zuen, baina, irabazi murritza ematen zuenez gero, beste lan batzuk hartu behar izan zituen, eta oso berandu arte ez zen **etxeratzen**. Karlos Zabala

Prediku latzaren ondotik, meza-bide lohitsuan zehar **etxeratzen** ginen ilunpean. Itxaro Borda

Donapaleun operaturik **etxeratua** dugu Janpier Mendiboure. Herria

Ikusi dugu gizon bat libratua, berriz **etxeratua**, familiak, askaziek, auzoek pagatu zutelakotz bahitzailek galdegin zutena. Herria

Etxeratu berria nauzue -egiaren laurdena esan zien. Migel Angel Mintegi

· -Izugarria izan zunan -esan dio Onintzari, neska-lagun **etxeratu** berriari. Joan Mari Irigoien

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Bidaia batetik **etxeratu** ondoren lagunei argazkiak erakutsi eta azalpenak ematen zaizkien gisa berean. Imanol Zurutuza

Nahi gabe entzun zuen solas batek gogoa ilundu zion eta arineketan **etxeratu** zen. Elena Touyarou

Lasterka **etxeratu** zen Perrette. Jon Muñoz

Ahal balu bera ere gustora asko joango zela esaten, eta ea berandu **etxeratuko** ziren, eta ea inork erlojurik bazeraman. Anton Garikano

Egun argia izan arte ez duk inoiz **etxeratzen**. Koro Navarro

Saran aldiz, jendea iluntzerako **etxeratzen** zen, eta egun berriko lehen argi zirrintan jaikitzen. Elena Touyarou

Edan egiten du, mozkorturik **etxeratzen** da gauero. Monika Etxebarria

On Camillo ikaraturik **etxeratu** zen, hildako-ilara erdi bat ikusi balu bezalaxe. Koldo Biguri

Seme bihurria soinean dituen arropa guziak zikindurik **etxeratzen** bazaio, hala hartuko du amak errixtan: [...]. Patziku Perurena

Harrapaka **etxeratu** nintzen, ibilbidea behin baino gehiagotan erratuz. Javi Cillero

Banekien besteen aurrean geraraziko ninduela eta esango zidala "azkar **etxeratu** tea hartzera". Koro Navarro

Arratsean, lokaztua eta burumakur **etxeratzen** zen, ikasleen gorrotoa ahaztu ezinik. Karlos Zabala

Gero, elkarrekin **etxeratzen** ziren biak. Jon Muñoz

Ez zuen sekulan jo, mozkorra arraila **etxeratu** ondoan, asaldaturik, bururik ez buztanik gabeko hitzak oihukatuz, eskumeneko gauza guziak hausten zituelarik ere. Elena

Touyarou

Dendarik denda ibilita, birrinduta **etxeratu** ziren. Xabier Montoia

Nik ere egin ohi nuen bitarteko papera, adieraztekoak elkartetik ezorduan edo gehitxo edanda **etxeratzeari** zegozkien kontuak zirenean. Ramon Saizarbitoria

Ederki oroitzen naiz, konparazione, nola, Pirinioetako Bakea sinatu zen denbora hartan, ezin alegerago **etxeratu** zitzaigun, erraiten zigularik ezen lagun egin zuela Villagrandeko dukea. Joan Mari Irigoien

Egia da Francisco Franco gure herrian egon zen egunean Mateo blai eginda **etxeratu** zela eguerdian. Koldo Izagirre

Gazte hau gaueko hamarrak aldera **etxeratua** zen, nekatuta zegoela eta aurki oheratu behar zuela esanez agurtu zuen bere otseina, Bouvin jauna. Josu Zabaleta

Komisarian ari ziren jendeen zerrenda hartu zuen batek eta onik **etxeratuak** zirela telefonoz baietsi. Itxaro Borda

Laster **etxeratu** zen Europara. Ramuntxo Etxeberri

Tren-geltoki aurretik igarota **etxeratu** izan banintz, ez zitzaidan ezer gertatuko. Anjel Lertxundi

Bero sapa egiten zuen egun hartan eta, ondorioz, izerdi-patsetan **etxeratu** nintzen, lagunekin frontoian pilota-saio luzea egin ondoren. Joan Mari Irigoien

Eskua, hor ikusiko huen txirrinean, hantxe jarri bainuen bart **etxeratu** nintzenean. Josu Zabaleta

Isilik eta esna, Hankapalo noiz **etxeratuko**. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (du aditz gisa) etxera eraman.

Zaurituak sendatuko ditut, erbesteratuak **etxeratuko**. Elizen arteko biblia

Mila frantziar **etxeratu** ditu Frantziako Gobernuak. Berria - Mundua

Preso eta iheslariak **etxeratuko** dituen eta gehiago sorraraziko ez dituen etorkizuna eraiki nahi du Etxerat-ek. Berria - Euskal Herria

Final hura gogoan izango dute eurek ere, eta aurten 2002an ihes egin zien txapela **etxeratu** nahiko dute. Berria - Kirola

Zeren eta soineko hura baitzen haien zerbitzuen ordain, eta **etxeratzen** zuen, haren orde, bertze emazteki indiar bat, zeinarentzat erosten baitzuen bertze soineko bat. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita etxeratu (4); **arte etxeratu** (3); **berandu etxeratu** (4); **berandu etxeratuko** (3); **berandu etxeratzen** (5); **beranduago etxeratzen** (3); **egonik etxeratua** (3); **ere etxeratu** (3); **eta etxeratu** (7); **etxeratu arte** (6); **etxeratu aurretik** (8); **etxeratu behar** (5); **etxeratu bezain** (9); **etxeratu bezain laster** (3); **etxeratu da** (3); **etxeratu dira** (4); **etxeratu egin** (7); **etxeratu eta** (17); **etxeratu ginen** (6); **etxeratu ginenean** (3); **etxeratu nintzelarik** (3); **etxeratu nintzen** (8); **etxeratu nintzenean** (9); **etxeratu ondoren** (6); **etxeratu orduko** (6); **etxeratu zela** (3); **etxeratu zen** (19); **etxeratu zenean** (18); **etxeratu ziren** (3); **etxeratua da** (3); **etxeratua dugu** (5); **etxeratuak dira** (3); **etxeratuko dituen** (6); **etxeratuko dituen eta** (3); **etxeratzeko agindua** (16); **etxeratzeko agindua eman** (3); **etxeratzeko agindua ezarri** (7); **etxeratzeko eta** (3); **etxeratzeko gogoa** (3); **etxeratzeko ohitura** (3); **etxeratzeko ordua** (3); **etxeratzeko tenorea** (5); **etxeratzekoak ziren** (3); **etxeratzen ari** (3); **etxeratzen da** (4); **etxeratzen denean** (4); **etxeratzen ginen** (4); **etxeratzen nintzen** (5); **etxeratzen nintzenean** (4); **etxeratzen zen** (14); **etxeratzen zenean** (12); **etxeratzen ziren** (3); **ez zen etxeratu** (3); **goiz etxeratzen** (4); **laster etxeratu** (3); **noiz etxeratuko** (4); **operaturik etxeratua** (3); **operaturik etxeratua dugu** (3); **zen etxeratu** (4)

---

etxeratze *iz* etxera joatea; etxera eramatea.

Jendaki, lagun eta adiskideak, orobat zenbait etsai, gomit dira haren alde telebistak amatatzerat **etxeratze** bakoitzean. Jose Angel Irigaray

Presidente frantziarrak eskerrak bihurtu zituen lau frantsesen **etxeratze** hori lortzen lagundu dutenei, hala nola Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari. Berria - Mundua

Ez zen halakoa izan haren **etxeratzea**. Xabier Etxabe

Herri gisa ausartak izan eta denon artean bahiturik diztuzten senide guztiak **etxeratze** bidean jarri behar ditugu. Berria - Harian

Faluja hiritik ihes egitera behartuak izan ziren biztanleen **etxeratze** plana etzi indarrean jarriko dela iragarri zuen atzo Iad Alauiren gobernuak. Berria - Mundua

Gauean, idatzi gabeko **etxeratze**-agindua dago: jendeak ez dio bisitariari etxera oinez itzultzen uzten, eta metrorako ere zalantzak. Pako Aristi

Hirian **etxeratze** agindua ezarri zuten. Berria - Mundua

Denentzat **etxeratze**-agindu fermua! “Couvre-feu” delakoa! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

armadak etxeratze agindua (3); **etxeratze agindua** (40); **etxeratze agindua ezarri** (20); **etxeratze agindua jarri** (4); **etxeratze aginduak** (3); **etxeratzearen aldeko** (3); **orduko etxeratze agindua** (3); **presoen etxeratzea** (3)

---

etxerre

'Etxerre batzen egin beharko dugu,' esan zuen baten batek. Joseba Sarrionandia

Eta arratsaldea eskean eman genuen, **etxerre** batzen. Joseba Sarrionandia

---

etxesail ik **etxe 7**.

---

etxetar ik **etxetiar**.

---

etxetarte *iz* etxeen arteko tartea.

Auzapezak dio badirela **etxetarteko** bideak landetako ekarriak. Herria

Etxetartetik tabernara aldika arrain saldoen bizkar-distirak gogoraraziz. Pako Aristi

---

etxetiar *(orobat **etxetar** g. er.)* **1** *iz* etxe jakin batean bizi den pertsona.

Anne isildu egin zen une batez, **etxetiar** guztien kontaketa egiten arituko bailitzan. Joxemari Iturralde

Urte anitzetan ez zuten **etxetiarrek** ahaide haren berririk izan eta Luis Lizarralderi anaiaz zituen oroitzapen ilunak erabat iraungi zitzaizkion. Gotzon Garate

Ez dezaket ahantz alabaina hemengo **etxetiar**, petxero eta buhameak oro 1789an Errepublikaren alde agertu zirela. Itxaro Borda

Zertifikata erdietsia zuelakoan irrati-transmisioetara bideratu zuten, korpuz hartan biltzen zirela herriko notableen gomendioak lortuak zituzten gainerako euskaldunak, ikasle, apezgai eta **etxetiar** ohoretsuen semeak! Itxaro Borda

Etxetiar eta ofiziale gehienak arrotzak ditugu, nonbaitik etorriak, osoki erdaldunak. Herria

Han, Isidro zaharra, auzoko **etxetiarra**, laguntzera berehala jin zitzaiona eta medikua deitu zuena, atzeman zuen. Michel Oronoz

Eta **etxetarrak** ogi gabe zeudenez, herriraino joatea deliberatu zuen erementariak. Josu Zabaleta

2 (izenondo gisa)

Ondoan kafeontzia, bor-bor, urrin **etxetiarra** barraiatzen ari zen sukaldean barna. Aingeru Epaltza

Laboratorioko aire kutsatuan azukre errearen usain **etxetiar** eta haurtzarokoa zabaldu zen. Juan Garzia

Horrek ez du esan nahi lehendik euskal pentsamendurik ez zegoenik, erromatar hirietan euskaldunen presentzia **etxetiar** eta herrikoi soil zela baizik, hau da, bernakuloak menderatutako esklaboak, artisauak eta liberatuak, merkatari edo soldadu soil bakarrik zirela alegia. Askoren artean

---

etxetresna *(ETCn **2.779** agerraldi; orobat **etxe tresna** ETCn **48** agerraldi)* **1** *iz* etxeko lanetan laguntzeko erabiltzen den tresna.

Berrelikadura-begizta negatibo bat da kontrol-sistema hori, hozkailuek, berokuntza zentralerako sistemek eta beste **etxetresna** askok duten termostatoaren printzipio bera baliatzen duen mekanismo bat. Irene Aldasoro

Etxetresna modernoak alde batera utzita, azken hogeita bost urteetan, behintzat, etxeak ez zekien berrikuntza hitza zer zen. Patxi Iturritegi

Diru apur bat eskuetan izan orduko, izozkailuak, irratiak, eta antzeko **etxe-tresna** elektrikoak erosten zituzten. Mirentxu Larrañaga

Linea zuriko **etxetresna** elektrikoak birziklatzeko. Berria - Harian

Udaltzaingoak adierazi duenez, **etxetresna** elektriko batek huts egin zuen eta sua piztu zen. Berria - Euskal Herria

Duela berrogeita hamar urte gure **etxetresna** elektriko bakarra bonbilla zen. Edorta Agirre

Etxetresna denda baten parera helduta, barruko telebista batean sekulako eguzki ederra ageri zen, paisaia eder bat berotzen. Juan Luis Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

ditu fagor etxetresnak (3); **etxetresna elektriko** (4); **etxetresna elektrikoak** (12); **etxetresna elektrikoen** (5); **fagor etxetresna** (11); **fagor etxetresna elektrikoak** (7); **fagor etxetresnak** (12); **fagor etxetresnak ek** (4)

---

etxetto ik **etxetxo**.

---

etxetxo *(orobat **etxetto** g. er.)* **1** *iz* etxe txikia.

Etxetxo batean nengoen, zeinak etxola edo borda baten karantza baitzuen, lastozko kamastra baten gainean. Joan Mari Irigoien

Kontu horiek kontari, etxerainoko bidea egin genuen: bi solairuko **etxetxo** bat zen, campusetik nahiko hurbil zegoena. Xabier Olarra

Han **etxetxo** bat eraiki zuten, bertan elkarrekin bizitzeko. Askoren artean

Etxetxoak erosoa eta segurua ematen zuen iluntasunean, argi goxoa ikusten zen gortinen atzetik, tximiniak ke ederra botatzen zuen. Julen Gabiria

Jende guztiak du Kensington Lorategietako **Etxetxoaren** berri, mundu zabalean maitagarriek gizakientzat eraiki duten etxe bakarra delako. Julen Gabiria

Haserre ekin zion bere bikarioari, leku berean ofizioa errezatzeko **etxetxo** bat eraikitzeagatik. Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Berriz ikusi zituen Ruche jaunak **etxetxo** kareztatuak, burua galtzeko moduko urdinez margotuak ateak eta leihoak. Jon Muñoz

Cressierretik **etxetxo** txuri guztiak ikusten ziren, eta atzean mendi malda, pinuz eta txaletez betea dena. Aizkoren soinuek basoa bizitzaz bete zuten; **etxetxo** eroso bat eraikitzeko behar ziren gauza gehienak Wendyren oinetan zeuden jada. Josu Zabaleta

Etxetxo zoragarria hantxe egon zen gau osoan, Pikondoetan, Maimie zaintzen, neskatoak horren berri ez bazuen ere. Julen Gabiria

Estatuaren etxe harrizko bat, arkitektura-estilo jakin baten eredukoa, leihoen erdiak itxurazkoak zeuzkana, bakar-bakarrik eraikia herriko burges txikien zurezko **etxetxo** solairu bakarrekoen erdian. Jose Morales

Xaflazko **etxetxo** moldakor bat eraikiarazi zuen Hart jaunaren jardinean kontua esperimentatzeko. Juan Garzia

3 irud/hed

Fotoan "Baltza" artzanor alemana besterik ez da ageri, neure kuttuna: bere **etxetxoaren** aurrean, kateatuta beti gizajoa. Txillardegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere etxetxoaren (3); **eta etxetxoa** (4); **etxetxo bat** (22); **etxetxo bat eraiki** (3); **etxetxo batean** (8); **etxetxo batera** (3); **etxetxo batzuk** (3); **etxetxo pobre** (4); **etxetxo pobre nahiz** (4); **etxetxo txuri** (3); **zuen etxetxo** (3)

---

etxetxori *(orobat **etxe txori** g.er.)* *iz* txolarrea.

Negu gogorretan sukaldeko leiho aitzinera hurbiltzen ziren **etxetxoriak** ditut orain gogoan. Piarres Aintziart

Txoriei begira egoten nintzen; baziren **etxetxoriak**, usoak eta, zenbaitetan, araba-zozoak, eta malkoak aterarazten zizkidaten haien txorrotxio patetikoek. Joxan Elosegi

Zuhaitzen goialdean sumatzen nituen **etxetxorien** lumak beren loaldi goiztiarrean zimurtzen eta haien betazalak gauaren aurreko azken argietan eztiki apaltzen. Joxan Elosegi

Kantu urritzen hasi ziren zozoak eta urretxindorra, eta **etxetxorien** pipirrioen txanda iritsi zen gero. Joxan Elosegi

---

etxetzar **1** *iz adkor* etxe handia.

Oso bakarrik sentitzen zela, oso bakarrik, bai, **etxetzar** hartan, eta horregatik ezkontzeko asmoa zerabilela buruan. Bego Montorio

Mila zatitan leherraraziko du Bond jaunak Gehryren **etxetzarra**. Hasier Etxeberria

Keynesen hitzetan, "aberatsak bertan bizitzeko **etxetzarrak** eraiki edota hil-osterako piramideak egin, edota, beren bekatuez damututa, katedralak eraiki eta monasterio edo atzerriko misioak sortu", jarduera horiek guztiek ekonomia hazkundea dakarte. Iñaki Heras

Plazako beste eraikuntzak ez zetozen bat harrizko **etxetzarraren** handitasunarekin. Jose Morales

Etxetzarraren leiho eta ateak gorriz margotuta daude [...], eta harrizko armarri bat ere badauka, bigarren eta hirugarren solairuaren artean. Hasier Etxeberria

Beste arrosa-landare igokari bat, adar bihurrikoa eta lore te-koloreak ematen zituena, fatxadan gora igotzen zen mahatsondo baten moduan, eta halako tankera delikatu eta arin bat ematen zion **etxetzarrari**. Koro Navarro

Kaka usain mina karriketan, eulitxen eraso etengabea gauetan, eta narriadura eta ezerosotasuna gure amaren familia belaunaldiz belaunaldi hazi zuen **etxetzarrean**. Pakete eskergak pilatuz eta pilatuz zihoazen, katalogorik eta fixategirik gabe, don Alejandroren **etxetzarreko** sakoneneko geletan eta sotoan. Aingeru Epaltza

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Baina hil egin duk Préchacqen, Landetan, hik ongi ezagutu huen **etxetzar** huts hartan. Txillardegi

Kale zabal batetik jarraitu zuten; **etxetzar** zuriak, erdiko balkoia geranioz beteta, eta filigrana gisako burdinsarea, gorenean Calatravako gurutzea zuela. Josu Zabaleta

Ohiz besteko **etxetzar** luze, ikaragarri luze hark elbarri erkindua ematen zuen. Jose Morales

Lagun batekin, Sperling sendagilearekin, hartu dut ostatu pezozko **etxetzar** batean, bi gela guztira. Felipe Juaristi

Ondarretako atzealdean, berriz, "Arroka" bi baserriak ia-ia ezkutatuz, sekulako **etxetzar** bat topatu dut; murrutzar altu luze batez inguratua. Txillardegi

Miterrand zaharrak bere loriatarako jasotako auzo berri hartan bazirela egundoko **etxetzarrak**, munduko multinazionalik handienenak. Hasier Etxeberria

3 (hitz elkartuetan)

Hondartzaren gainean, eskuin aldean genuen berriro "Bains Napoléon" izeneko mainu- **etxetzarra**. Txillardegi

etxezain *iz* **1** etxe bat zaintzen duen edo etxe baten ardura duen pertsona.

Etxebizitza handi bat zuen Kurfürstendamm-etik gertu, margolan askoren jabe zen, **etxezaina** zuen. Koro Navarro

Ez zituzten beraz nahasten gradu ezberdineko jendeak, hala nola, etxeko jaunak eta **etxezainak**, norbait zirenak eta ezdeusak, zerbait zekitenak eta ezjakinak, jende handiak eta jende xehea! Piarres Xarriton

Beste beribilaren jabea mera zen, auzapeza, etxalte zonbait bazütüana **etxezainekin**. Herria

Lehenbiziko semea institutuko **etxezainaren** emaztearekin izan nuen **Etxezaina**, esmokin beltza soinean, irmo eta tente dago, atzealdean, zerbitzu-mahaiaren ondoan, begiradaz kudeatzen ditu galtza eta librea beltzez jantzirik mahaia zerbitzatzen ari diren mirabeak. Matías Múgica

Minutu batez-edo txirrina isilik egon zen, eta gero berriro ekin zion, halako indarrez, non otseina, beldurraren beldurraz, gelatik kanpora itsumustuka atera, eta **etxezaina** esnatzera joan baitzen; hura poliziarengana joan zen eta ordu laurden baten buruan-edo haiek atea bota zuten. Josu Zabaleta

Etxezaina, bi zerbitzari lagun dituela, leihoetara hurbiltzen da, itsumustuan haztamuka, itxi egin behar baititu. Xabier Olarra

Josek, bada, Potifarren estimua irabazi zuen, eta honek bere zerbitzurako hartu eta **etxezain** egin zuen eta ondasun guztien arduradun. Elizen arteko biblia

Mañot ez zen gurekin heldu; etxe-mutila **etxezain** gelditu zen Ezponda Baithan. Aingeru Epaltza

Herodesen **etxezain** Kusaren emaztea. **Etxezainak** beheko sua piztuta zeukan egongelara eraman zituen Amaia eta Leire. Elizen arteko biblia

Etxezainak bi bisitaren berri eman zion, baita kanpoan egon bitartean jasotako zenbait deiren berri ere, eta azpil batean pilatutako posta ekarri zion. Eduardo Matauko

Lilyk, **etxezainaren** alabak, egiten zien neskametza. Irene Aldasoro

- **Etxezainaren** lanak egin dizkizuen Anastasio, abokatua da egiatan. Aitor Arana

Dumbledore, McGonagall, Snape, Sprout eta Flitwick irakasleak han zeuden, Filch **etxezainarekin** batera; honek erantzia zuen bere ohiko beroki marroia, eta frak zahar eta lizundu bat zeraman soinean. Iñaki Mendiguren

2 (izenondoekin)

Wicklow Streeteko Batzar gelan igarotzen zuen O'Connor jaunak egunaren parte handi bat, Jackekin, **etxezain** zaharrarekin, sutondoan eserita. Irene Aldasoro

Izan zaitezte **etxezain** leial eta zentzuduna bezala, nagusiak bere orduan otordua banatzeko morroien buru ipini duena bezala. Elizen arteko biblia

Etxezain faltsuak ostu bere nagusiaren alaba. Juan Garzia

Sam, nire **etxezain** filipinarra, kanpora ateratzekoa zen; beraz, whisky-ur erretilukada bat prestatu nuen, eta pentsatu nuen emakumea bere senarra bezain xantua baldin bazen, hartuko zuen ustekabekoarekin goiz samar alde egingo zuela. Xabier Olarra

Etxezain patilladunak ez zuen ezagutu geltokian, eta Nini oinez iritsi zen jauregitxora, trikotatzeko poltsa eskuan. Xabier Olarra

Nagusiak txalotu egin zuen **etxezain** zuzengabe hura, zuhurki jokatu zuelako. Elizen arteko biblia

3 (izenondo gisa)

Arratsak andre **etxezainaren** pianoaren aurrean edo hiriko aldirietan hara eta hona igarotzen zituen. Irene Aldasoro

4 (adizlagun gisa)

-Etzan zaitez zuen aitak **etxezain** utzi zituen ohaideekin. Elizen arteko biblia

5 irud/hed

Geroztik bi erresumen aztaparretan gira euskaldunak **etxezain**, eta ez etxeko jaun. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)
eta etxezaina (3); **eta etxezainak** (3); **zure etxezainak** (3)

---

etxezaintza *iz* etxearen zainketa.

Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu **etxezaintzaren** kontu, kargutik bota egiten zaitut eta. Elizen arteko biblia

Britainiarren ondorengo hinduak, nola moldatuko ziren jada beren gain hartua zuten **etxezaintzaren** administrazioan gaitasun-gabeziarako aukerarik uzten ez zuen ondare politiko harekin? Iñaki Mendiguren

---

etxezale *izond* etxean denbora asko pasatzen duena. ik **etxezulo**[1].

Umila, zintzoa, emakume **etxezalea**. Berria - Euskal Herria

Etxezale izaki, beti ere gertuan nenbilena, egunean hiru bider hartu behar ziren datuak behar zen orduan apuntatu ahal izateko, morroi eta ordezko segurua nahi zuen Mendizabalek. Pello Zabala

Amerikarrek, **etxezale** betiere, esan zuten zuhaitz haiek jeneral baten agintea irudikatzen bazuten, eta jeneral baten izena behar bazen haien handitasuna adierazteko, bazutela horretarako Washington jeneral ospetsua eta jartzeko Washingtonia izena zuhaitzei. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

etxezulo[1] *izond adkor* etxezalea.

Ordutik, tradizioari buruzko ikuspegi **etxezuloegiek** bezainbat goganbehartzen naute kanpoederregiek, tradizioa ez baita oinordekotzan ematen zaigun zerbait, lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat baino. Anjel Lertxundi

Aitaren etxea defendatzeko modu bakarra dagoela uste duenak, ez du Aresti ulertu, Eta, okerragoa dena: ez du aitaren etxea ulertu, ez du jakin nahi aitaren etxeak egoitza asko dituela, ganbarak eta sotoak ere barne; ez da jabetu **etxezuloegi** izatearen arriskuaz. Anjel Lertxundi

Etxezuloegia den batek egiaren jabe ikusten du bere burua, eta aitaren etxea defendatzeko modu bakarra, estua, mugatua, pitzadurarik gabea aldarrikatzen du. Anjel Lertxundi

---

etxezulo[2] **1** *iz adkor* etxea.

Bere osaba Iturrioz doktoreak eman zion hezurdura horman eskegi zuen, eta halako magialari edo nekromante baten **etxezulo** baten itxura hartu zuen gelak. Josu Zabaleta

Halaxe izan zen, beste bide batzuk agertu ziren, **etxezulo** hartatik paraje zabalagoetara ireki ziren ibilerak, beste jarduera batzuetan sartu zen Gabin neskaren arrastoan. Iñaki Iñurrieta

Bi pertsonak bat egin edo bat izatera datozelarik, entretenigarririk edo bizi-betegarririk asko aurki lezakete: txakur bat erosi, edo **etxezulo** bat, furgoneta bat..., baina haien ekarririk beteena, entretenigarritik etsigarrira daraman jauzi erabatekoa, pertsonatxo bat (edo gehiago) ekartzea da, dela bietako baten sabeletik edo dela umezurztegi globalean erosita. Iñaki Segurola

Aita **etxezuloan** sartuta. Pablo Sastre

Areatza utzi badute ere, ez da **etxezuloan** sartuta egoteko izan. Berria - Euskal Herria

Arratsaldea **etxezuloan** pasatzen genuen: ama eta gu senideok mahai inguruan, eta aita etxearen beste muturrean irakurtzen. Fernando Rey

Ongitxo dakit batzuetan bakardadearen beharrizan handia dudala, baina beste era batekoa da ni beldurtzen nauena: asperduriaren betea ezagutaraziko didana, igandeetako hutsune beldurgarria biderkatuko didana, **etxezuloan** egotera tentatuko nauena, seguruenik kilo eta zimur gehiagotan gauzatuko dena. Patxi Zubizarreta

Etxezuloko sukaldean lehen egiten ziren lanak industrian egiten dira orain, eta elikagaia "nortasun gabeko", "anonimo", "urruneko", "arima bako" bihurtu da. Edorta Agirre

Wendyren bizitza hain zen **etxezulokoa**, maitagarriak ezagutzea zoragarria iruditzen zitzaion. Julen Gabiria

Sukaldaritza **etxezulotik** irten egingo da gehienbat, jatetxera, ikastegiko edo lantokiko jantokira, hegazkinekora, ospitalekora, etc. Edorta Agirre

2 (izenondo gisa) etxetik ez ateratzeko joera duena.

Horrez gain, haur batzuk **etxezuloak** izaten dira, eta telebista dela edo bideo jokoak direla, etxean gertazen dira. Berria - Harian

Mutiko bat bagenuen, herabe samarra eta **etxezulo** amorratua, beti negarrez aritzen zena. Joxerra Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
etxezuloan sartuta (3)

---

etxola *(ETCn **4.339** agerraldi; orobat **etxol** g.er.)* **1** *iz* aldiri txiroetako bizilekua, solairu bakarrekoa eta material txarrekin egina; landako etxe txikia, batez ere aberak, tresnak eta kidekoak gordetzeko-eta erabiltzen dena. ik **txabola**.

Han herritarrek arrantzako eta ere udan pausatzeko ezarriak dituzten *cabins* edo **etxolak** daitezke ikus bakarrik. Aurelia Arkotxa

Honda-honda eginak zeuden zerrien **etxolak**, eroriak eta ustelduak zeuzkaten teilatuak, zuloak ageri ziren alboetan, hautsiak zeuden kontraleihoak, eta harrotua karea. Koro Navarro

Oraintxe handikien etxe, jauregi eta bizileku dotoreak, hurrengoan mundu marjinaleko **etxolak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hazparneko lurraldeak eskainia zuen **etxola** bat Hazparneko ikastolari. Herria

Batzarturiko guztiekin Gabaongo kultu-lekura joan zen, han baitzegoen Jainkoarekin elkartzeko **etxola**, Jaunaren zerbitzari Moisesek basamortuan egina. Elizen arteko biblia

Arroilak zilatu behar zituen, han **etxola** altxatu ahal izateko. Eneko Bidegain

Hasi ziren **etxolen** ordez benetako etxeak eraikitzen, zimenduz osatuak eta pezozko edo harrizko paretekin altxatuak, eta teilaz eta enborrez egindako estalkiak zituztenak. Santiago Iruretagoiena

Lorategian **etxolak** eta estalpeak pilatzen ziren. Agustin Otsoa

Gaua **etxolan** iragan zuten, belarrezko etzantza batean. Elena Touyarou

Sara adi zegoen **etxolako** ate ostean. Jose Antonio Mujika

Hagriden **etxolako** zoko batetik bat-batean iritsi zen hotsak jirarazi egin zituen Harry, Ron eta Hermione. Iñaki Mendiguren

Haren begiak **etxolako** bazter guztietara begira zebiltzan etengabe, itxaropen edo kontsolamendu-izpiren baten bila bezala. Iñaki Mendiguren

Laugarren egunean afaria eman zien Holofernesek bere **etxolako** zerbitzariei. Jose Antonio Mujika

Lainoa **etxolaren** gainetik aldentzen zenean, israeldarrak abiatu egiten ziren; lainoa gelditzen zenean, berriz, etxolatu. Elizen arteko biblia

Israel nagusitu egin zitzaion Judari eta gudariek ihes egin zuten nork bere **etxolara**. Elizen arteko biblia

Aldatu zituen jantziak, Jaunaren **etxolara** joan eta ahozpeztu egin zen. Elizen arteko biblia

Jaunak Moisesen bidez eman zuen legean agindu hau aurkitu zuten: israeldarrak **etxoletan** bizi behar zutela zazpigarren hileko jaietan. Elizen arteko biblia

Filistearrek, deiadar hura aditzean, esan zuten: "Zer dute hebertarrek beren **etxoletan** horrenbesteko deiadarra egiteko?". Elizen arteko biblia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Izai abarrez eraikia zen **etxola** biribil baten ondora eraman zituen. Aurelia Arkotxa

Neurri (ordenak), tipologia (tenplua eta tenplu-motak, teatroa, etxea), eta arketipo idealen (**etxola** primitiboa) sistemen sortzailea da. Santiago Iruretagoiena

Txarrantxazko hesiaren bestaldean ohiko **etxolak** zeuden. Urtzi Urrutikoetxea

Ezkerretara hangar itxurako **etxola** txikia dago eta eskumatara negutegiak han-hemenka. Urtzi Urrutikoetxea

Etxola txikiaren atea itxita dago. Itziar Otegi

Egun hartan, jasoko dut Daviden **etxola** eroria, horma pitzatuak beteko dizkiot eta lurreratuak jasoko; antzinako eran berregingo dut. Elizen arteko biblia

Bakarren batzuek zingiretako ihiekin egiten dituzte **etxola** sabaidunak. Santiago Iruretagoiena

Etxe zaharra aspaldiko **etxola** abandonatu bat zen, gain batean zegoena, eta jendeak bertara egunez ere hurbiltzeko beldurra izaten zuen, sugegorriz eta mamuz beterik omen zegoelako. Koldo Biguri

Estazio meteorologiko horiek **etxola** antzeko batzuk dira non neurketak egiten diren. Berria - Gaiak

Etxola ziztrin batean 8-10 urteko alabatxoa duen emakume bat bizi da. Berria - Kultura

Itsas hegiko **etxola** mixerableetan bizi ziren arrantzaleekiko erlazio estuegirik ere ez zuen, aipatu erlazio komertzialak salbu. Xabier Mendiguren Elizegi

Diruak lanak ematen ditu, bere mugitu- eta korritu-behar zoroak harrapatu zuenetik; dirua gobernatu egin behar da, ganadua bezalaxe: jai eta aste eman egin behar zaio biziko bada eta emango badu; azpiak berritu bankuetan edo bere **etzauntza** elektronikoetan, merkatuaren larrera atera batera eta bestera ibil dadin. Iñaki Segurola

---

etze ik **etxe**.

---

etzi *(ETCn **14.879** agerraldi)* **1** *adlag* biharkoaren hurrengo egunean.

Gaur hondartzara, bihar mendira eta **etzi** auskalo nora. Aingeru Epaltza

Bihar gauean berriro gaiztotu eta **etzi** elurra izango dugu ostera ere. Jon Arretxe

Baina gaur, bihar eta **etzi** bideari jarraitu behar diot. Elizen arteko biblia

Kontua da **etzi** nire neskalaguna ikustera joanen naizela, Má?sa, ikuskatzailea, badakizu. Fernando Rey

Bihar **etzi** baino hobe. Bihar edo **etzi** hilko naiz ni. Joan Mari Irigoien

Ez naiz hemendik joango ez bihar ez **etzi**, eta denek jakingo dute zergatik ez naizen joan. Jose Morales

Etzi ez bada etzidamu etorriko dira haien bila. Aingeru Epaltza

Baina ez zioten ezer eramango etxera, ez bihar, ez **etzi** eta ez etzidamu. Jose Morales

Etzi beranduenez. Aingeru Epaltza

- **Etzi**, larunbatez, dantzaldia izango da plazan. Felipe Juaristi

Etzi, abenduaren hirua, euskararen eguna da, ofizialki, iaztik Autonomia Erkidegoan. Joxerra Garzia

Etzi egingo dute erreferenduma, uhartea bateratu edo ez erabakitzeko. Berria - Mundua

Etzi, notariaren ikustera joan beharrak gara. Daniel Landart

Etzi, jaitsi zaitez eta gorde, lehengo hartan ezkutatu zinen toki berean. Elizen arteko biblia

Zoazte orain, eta itzul zaitezte **etzi**. Elizen arteko biblia

Esan zion **etzi** joango zela Museora, **etzi** irtengo zelako berriro gelatik. Unai Elorriaga

Egunak: gaur eta bihar, 20: 30ean; **etzi**, 19: 30ean.-**Etzi** arratsean ederki. Berria - Euskal Herria

Bihar gauean, **etzi** gauean, hurrengo gau guztietan, berriz etorriko da mahai honetara irakurtzera, ogia eta txokolatea jan bitartean. Monika Etxebarria

Bihar ere egoera antzekoa izango da; **etzi** eguerditik aurrera hasiko da giroa apur bat epeltzen. Berria - Harian

Bi egun eman dizkidate; **etzi** bertan nahitaez itzuli behar dut zure kotxean, zure neskameren batek lagunduta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Erakusketa hori **etzi** arte egongo da zabalik. Berria - Harian

Bihar arte edo beranduenez **etzi** arte. Jon Muñoz

Fernando Latorre baritonoak eta Oscar Candendo organistak gauzatuko dute **etziko** estreinaldia. Berria - Kultura

Eguerdian elkartu ondotik, aperitifa hartuko **dute etziko** ekitaldian bildutako poetek, eta elkarrekin bazkalduko dute gero.*Soinujolearen semea* obraren egilearen arabera, «aitormen sail bat» ehundu dute **etziko**, «olerkiek beti halako aitortza kutsua» izan ohi dutela gogoan hartuta. Berria - Kultura

Etziko eta larunbaterako egin du deialdia Askatasunak. Berria - Euskal Herria

Bihar ilunabarretik **etzi** goizera bitartean. Pello Zabala

Etzi, jainkoak nahi badu. Pablo Sastre

2 irud/hed

Gaur egun komunikabide ugari baititugu, eta zer esanik ez bihar edo **etzi**. Joxe Austin Arrieta

Dio ere orai etxelur ez dena bihar edo **etzi** hala izan ditakeela, sail hortan gauza batzu artetan kanbiatzen direla. Herria

Nor izanen da nagusi bihar eta **etzi**? Errepublika laikoa zen izenez, nahiz diktadura izaitez, bainan biharko lanjerra da errepublika islamista baten sortzea. Herria

Ez du iduri behin ezetz erranik gobernuak bihar edo **etzi** baia emanen duela. Xabier Montoia

3 *bihar-etzi*

Bihar-**etzi**, denok asiarrak. Edorta Agirre

Baina hori guztia suabe esan zion Nemiari, bihar-**etzi** hilko zela eta plazara joan nahi zuela. Unai Elorriaga

Bihar-**etzi** itzuli beharko du gauzak batzera, txukuntzera, eta gero arropa-dendako multinazionalari erakutsi beharko dio berriz ere. Urtzi Urrutikoeetxea

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ariko da etzi (9); **ariko dira etzi** (8); **aurka etzi** (4); **bada etzi** (4); **baina etzi** (4); **bihar edo etzi** (64); **bihar eta etzi** (94); **bihar etzi** (14); **bilduko da etzi** (4); **bisita etzi** (4); **da etzi** (51); **dio bisita etzi** (4); **dira etzi** (22); **ditu etzi** (16); **dituzte etzi** (9); **du etzi** (71); **du etzi aguileran** (7); **dute etzi** (45); **ean** (5); **edo etzi** (73); **egingo ditu etzi** (4); **egingo dute etzi** (11); **eta etzi** (184); **eta etzi egingo** (11); **eta etzi ere** (7); **eta etzi jokatuko** (7); **eta etzi sei** (5); **etzi aguileran** (9); **etzi amaituko** (6); **etzi amaituko da** (5); **etzi arratsaldean** (4); **etzi arte** (12); **etzi aurkeztuko** (7); **etzi berriro** (4); **etzi beste** (7); **etzi bilbon** (10); **etzi bilduko** (4); **etzi donostiako** (6); **etzi donostian** (9); **etzi donostian egingo** (4); **etzi egingo** (26); **etzi egingo da** (4); **etzi egingo du** (5); **etzi egingo duen** (4); **etzi emango** (4); **etzi ere** (12); **etzi ere ez** (4); **etzi erredakzioa** (6); **etzi estreinatuko** (4); **etzi eta** (25); **etzi eta etzidamu** (14); **etzi europako** (4); **etzi gasteizen** (5); **etzi goizean** (6); **etzi hasi** (7); **etzi hasi eta** (7); **etzi hasiko** (26); **etzi hasiko da** (18); **etzi hasiko dira** (4); **etzi iruñ etzi izango** (16); **etzi izango da** (12); **etzi joango** (4); **etzi jokatuko** (46); **etzi jokatuko da** (12); **etzi jokatuko dira** (4); **etzi jokatuko du** (8); **etzi jokatuko duen** (5); **etzi jokatuko dute** (8); **etzi jokatzeko** (6); **etzi oiartzunen** (4); **etzi sei** (6); **ez du etzi** (4); **ez etzi** (5); **gaur eta etzi** (12); **hartuko du etzi** (14); **izango da etzi** (9); **izango dira etzi** (4); **jokatuko da etzi** (7); **jokatuko du etzi** (8); **jokatuko dute etzi** (6); **miarritzek etzi** (4); **partida etzi** (6); **realak etzi** (4); **taldeak etzi** (4)

biharko eta etziko (7); **da etziko** (5); **da etzikoa** (7); **ditu etziko** (4); **du etziko** (4); **dute etziko** (5); **eta etziko** (13); **etziko partida** (6); **etziko partidarako** (8); **etzira arte** (4); **etzitik aurrera** (15); **izango da etzikoa** (4)

---

etzidamu *adlag* etzikoaren hurrengo egunean.

Eguna joan eta eguna etorri, eguna joan eta eguna etorri, egunez egun, gaur, bihar, etzi eta **etzidamu**. Mirentxu Larrañaga

Etzidamu hasiko duten lana zortzi aste barru burutuko dute, eta abendu parterako espero dute filma amaitzea. Berria - Harian

Etzidamu zerbait gehiago erraten ahalko dizut. Jon Muñoz

Etzidamu arrastirian. Txillardegi

Gilen: bihar hilen, etzi ehortziren, **etzidamu** ahantziren. Pello Salaburu

Varsovian hilen naiz bihar edo etzi edo **etzidamu**. Edorta Jimenez

Guk badakigu orain ez bada, bihar izan litekeela, eta, zorte pixka batekin, akaso etzi ere bai, baina iritsiko dela **etzidamu**, eta **etzidamu** ezinezkoa izango dela. Arantxa Iturbe

Herioa hurbiltzen usnatzean hala zen, **etzidamuko** hilotzaz baino, norberaren idatziriko balizko suntsiketa itsaso galernatsu bilakatzen ziren malkoak. Itxaro Borda

Laster puxka bat nabarmenduko zaio, horregatik ipini ohi da **etzidamuko** Santa Luziarena mugarritzat. Pello Zabala

Valdelinaresko eski estazioan bukatuko da gaurkoa, eta Muela gainean bukatuko da **etzidamukoa**. Berria - Kirola

Etziko kontzertuan, Michael Haydnen *Requiem*-a emango dute, eta **etzidamukoan** Mozartena. Berria - Kultura

Ezkutuko borroka zen, auzoa (k) ez ulertzeko adiztegia, **etzidamurako** eskakizuna eta bizirako sakrifizio erraldoiak eskatzen zituena. Itxaro Borda

---

eudaimonia *iz* doktrina morala, ongi nagusia zoriontasunean datzala dioena; zoriontasuna.

Eudaimonia bizitzari bere osotasunean hartuta dagokio, ez, alabaina, une bakoitzean lor daitekeen zorion-klase horri. Askoren artean

Greziarrek "loratzea" adierazteko erabili zuten hitza **eudaimonia** da. Askoren artean

Aristotelesen aburuz, izan ere, plazer fisiko handia senti dezakegu **eudaimoniarik** lortu gabe. Askoren artean

---

eudemonista *izlag* eudaimonia dagokiona.

Aristotelesen Filosofia Politikoa **eudemonista** da: bertute morala perfekzioa da, areté, gauzak onak dira bakoitzarentzat eta denontzat. Askoren artean

---

eufemikoki *adlag* eufemismoa erabiliz.

Kaos moralaren eta biolentziaren erruduntzat jotzen da erlatibismoa -bistan baitago, pentsaera absolutista dogmatikoak, batzuek **eufemikoki** "unibertsalista" deitu nahiago duten horrek bere moral tinkoarekin agindu duen mende luzeetan, biolentzia orotik libre ikusi garela mendebalean... Joxe Azurmendi

---

eufemismo *iz* egokitzat hartzen ez den hitz eta esaldi baten ordez erabiltzen den hitz edo esaldia.

Lehenbiziko gutunean "iragana gainditzea" aipatu zuen, "Bewältigung der Vergangenheit": gerora jakin dut estereotipo bat dela hori, egungo Alemanian mundu guztiarentzat "nazismoaren errua ezabatzea" esan nahi duen **eufemismo** bat. Juan Garzia

Hitzak itxuragabetzeko lehenengo arrazoia hitz estalkiek edo, beste modu batean esanda, **eufemismoek** ematen digute. Iñaki Arranz

Nire agendako **eufemismo** eta litoteetan. Joseba Urteaga

Kapitalismoak -edo batzuentzat haren **eufemismoa** ere baden merkatu-ekonomiak- krisi handiak bizi izan ditu. Iñaki Heras

Anaiak, utzi, ez zizkion berari zehazki utzi giltzak: esateko modu laburbidezko bat baino ez zen hura, **eufemismo** bat, ulertzeko prest-prest dagoenari esaten zaizkion horietakoak. Juan Garzia

Zer jende-mota da **eufemismoen** beharra duena Jainkoaren edo Jesusen izena esateko? Karlos Zabala

Lapur trebatu bat alegia, **eufemismorik** gabe jokatu nahi badugu. Anjel Lertxundi

«Nabarmena da Konstituzioaren arabera Nafarroa Euskal Kontseilu Nagusiko parte izatera deitua dagoela, edo **eufemismorik** gabe esanda, Euzkadiko estatu separatistako

parte izatera», esan zuen orduan Aizpunek. Berria - Euskal Herria

Une benetan urruntzailea: heriotza, **eufemismorik** gabe esateko. Bernardo Atxaga

Borreroak ez du oraindik bisita-txartelean ipintzeko **eufemismo** gustukorik aurkitu. Karlos Linazasoro

Egoera itsusienak ezkutatzen baitituzte **eufemismo** ederraizunekin. Anjel Lertxundi

Aipatu duzun "galdeketa trinko" hori, bestalde, **eufemismo** hutsa da, eta ondo dakizu. Rafa Egiguren

Gorroto diot "hirugarren adina" esapide horri, amerikarren beste zurikeria bat, gaurgero inportatuak ditugun hainbesteren artean, amerikarrak **eufemismo** zuriaren erregeak dira. Karlos Zabala

Eufemismo ankerrena erabiliz *hirugarren mundua* deritzogun horretan gizakien bihotza gurea baino sentiberagoa delako ustea, baliteke ustela izatea. Edorta Jimenez

Euskarazko belarri garbientzat, alua, gaur egunean, izen bezala, edo ez da ezer edo **eufemismo** sexuala da, aspaldi galdua baitu hitz horrek bere jatorrizko esanahia. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta eufemismoak (3); **eufemismo bat** (3); **eufemismorik gabe** (4)

---

eufonia *iz* hitz bateko edo esaldi bateko hotsen harmonia.

Irakurlearen inplikazio hau lortzeko, lau prozedura nagusi darabiltza: irakurlea solaskide bihurtzea; tesi bakoitza berau finkatzen den sentsazioaren eta oinarrizko dituen inferentzien perspektiba bikoitzetik arrazoitzea; konparazioa; **eufonia**. Xabier Amuriza

---

eufoniko *izond* eufonia duena.

Aliterazio polisilabiko **eufonikoa** dute ezaugarri. Xabier Olarra

Izena Aureliano Buendía bezain **eufonikoa** da. Anjel Lertxundi

Gartxot, Amigot, Pierrot, Santxot, Joangot, (agot deitura **eufonikoak**), guziak, "Johanot de Jaso" hura bezala, naturalem patrie de bascos o ultra portum de roncesvalibus" hartakoak. Patziku Perurena

---

euforbio *iz Euphorbia* generoko landarea, zurtoin haragitsu eta arantzaduna duena.

Urrutitik ikustatu nuen Itsasoari izena eman zion mendia: haren mazeletan **euforbioa** hazten da, edenen deusezgarria; gailurraldean satiroak bizi dira, haragikeriara emanak diren gizon anker basa batzuek. Juan Garzia

---

euforia 1 *iz* poztasun biziko egoera.

Euforia hori izango genuke lagun eguneroko bizitzatik kanpora ibili bitartean: begira zer pozik jartzen diren umeak elurrarekin; begira zer oturuntzak egiten zituzten lehengo garaietan hileta egunean; begira zenbat hitz egiten duten, malenkoniatsu bakartien ipuin guztiak gezurtatuz, bihotza puskatua daukaten maitale abandonatuek. Bernardo Atxaga

Euforiak hartu nau. Piarres Aintziart

Orduak pasa ahala, ordea, poztasuna eta **euforia** urritzen joan ziren. Berria - Euskal Herria

Ez dakit zenbat iraun zuen **euforia** hark. Bernardo Atxaga

Colorado ibairaino jaitsi izanaren alegrantziari, erruz edan dugun garagardoaren **euforia** gaineratu zaio. Patxi Zubizarreta

Euforia nagusi, arrakastaren usaina bazter orotatik, etengabeko *world tourrak* denen gogoetan. Unai Iturriaga

Gure burmuineko sistema linbikoak feniletilamina izeneko substantzia bat sortzen du (FEA), hau da, burmuina estimulatzen eta dinamizatzen duen anfetamina, eta horrek poztasuna, **euforia** eta asaldura eragiten du pertsonarengan. Luis Elberdin

Euforien ontzi eroa. Piarres Aintziart

Dijon!, esan zuen Müller jaunak halako batean, berebiziko deskubrimendua egin duen baten **euforiaz**. Anjel Lertxundi

Frantziaren aurkako berdinketak **euforia** piztu du Kroazian. Berria - Kirola

Hasi aurreko **euforia** desagertu egin zen berehala, lehengo primarioetan, Iowa eta New Hampshiren hirugarren eta bigarren postuak hurrenez hurren baino ez zituenean eskuratu. Berria - Mundua

Euforiazko ordokiak hegaldatu ondoan, ortzaiz ilunetako zizarrez hanpatu hodeiak ene hegazti migratzaile ibilerarentzat traba astun bihurtuko ziren. Itxaro Borda

Euforiarako arrazoi askorik ez dugula esan genuen. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euforia handienarekin ere kostatu egiten da harria gora joatea. Bernardo Atxaga

Itsasotik datorren haizeak, etapa luzearen akidurak sortarazi **euforia** bitxiak, Santiago hor berean agertzeak sendimendu eta ideiak moztu bezala dizkidate. Piarres Aintziart

Giroak antsietatea eragiten du, eta neurriz gora dirua botatzeko **euforia** arriskutsu bat. Pako Aristi

Iraultzaren **euforiak** intelektual ezagunen, enpresaburuen, politikarien eta apaizen babes eta sostengua izan zuen. Berria - Mundua

Dakientxoarekin eta irudika zezakeenarekin, kizkurrak atera dizkio garai hartako Espainian bizi zen **euforia** militarraren kontakizunari. Anjel Lertxundi

Garaipen baten **euforia** ezin disimulatua bizi du "kultura europar" klasikoak. Joxe Azurmendi

Nolabaiteko **euforia** hedatzen da kartzela askotan, eta ematen du Espetxeetako Zuzendaritza Nagusira ez dela gai egoerari eusteko. Jokin Urain

Aurreko ia gaixo guztiek, hain zuzen, hasierako **euforiaren** ondoren, ezinean ibili ziren zentzumen berri batera egokitzeko zama izugarria jasateko. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lagun zaharren artean nagoela sentitzen dut oraintxe, une alkoholiko gisako baten zelebrantzan ari naizela; **euforia** suerte honek ez dit, ordea, zutik egotea galarazten, abantaila hori daukat. Harkaitz Cano

Ipuinaren gozamenak utzitako **euforia** puntuarekin. Joxean Agirre

Gai hori baztertu egin zuen pentsamendu ekonomikoak gerraondoko hazkunde etengabearen **euforia**-giroan, eta hainbat hamarralditan ez zaio inori interesatu, garapenaren ekonomistei izan ezik. Koro Navarro

Euforia eta paniko zikloen iraupena, grosso modo, jendeak bere azken hondamendia ahazteko behar duen denbora aldiaren araberakoa izan da. Iñaki Heras

Euforia eta erokeria-une horiei jarraiki, konpainia berriak ere sortu ziren inbertsore berrien eske zegoen **euforia**-giroari probetxua ateratzeko asmoz. Iñaki Heras

Eguneroko bizitza hain astuna eta neketsua denez, elurraren etorrerak **euforia** eta liberazio sentimendua ekartzen du beti. Bernardo Atxaga

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezin zuen barne-**euforia** hura gerarazi, batez ere begien aurrean zeuzkan formulen edertasuna miretsi ondoren. Fernando Morillo

Beheraldi horrek, aldi berean, ELGE eremuko jardueraren suspertzea moteldu zuen, interes-tasek behera egin zuten arren, kreditua ezin baitzen indarberritu, baldin finantza-**euforiako** urteetan metaturiko dudazko krediduen masa ez bazen banku-balantzetatik erauzten. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta euforia (12); **euforia eta** (5); **euforia nabari** (3)

---

euforiko **1** *izond* euforia duena, euforia adierazten duena.

Ez da egoera **euforiko** bat, nire bizitzako une honetan dagokidan lekuan nagoela sentitzea baizik. Pako Aristi

Egoera pertsonalaren arabera, idaztea prozesu mingarri edo **euforikoa** da. Berria - Kultura

Mozkorrek izan ohi duten aldian behingo argialdi **euforiko** horietako bat izango zuela pasatu zitzaidan burutik Nire barrena oso urruti zegoen suhartasun **euforikotik**: beldurra ez bazen, beldurraren oso hurbilekoa zen sentitzen ari nintzena. Anjel Lertxundi

Argi zegoen ez zela axaleko eta **euforikoa**, baizik eta erreakzio sakonak eta oso goibelak izateko gauza zela, bere egoera larrian. Xabier Olarra

2 (adizlagun gisa)

Bistan dago bera ere **euforiko** dabilela. Patxi Iturritegi

---

eugenesia *iz* genetikaren legeen azterketa eta aplikazioa giza espeziearen hobekuntza lortzeko.

Eugenesia negatibo, kentzezko horren beste aldean, berriz, **eugenesia** positibo, hautespenezkoa dugu, haurrik gogobetekoenak izateko ahaleginean oinarritua. Juan Garzia

Genetistek ez dituzte nahikoa kontrastatu beren **eugenesia**-ideiak zientzialari ez direnekin. Juan Garzia

Ingalaterran, Estatu Batuetan, **eugenesia**-elkarteak sortu ziren. Juan Garzia

Eugenesia-erakundeen nazioarteko federazioaren buru gisa, arraza arteko gurutzaketen batzordeko lehendakari izatea proposatu zion bere lagun Eugène Fischer-i. Juan Garzia

---

eugenesiko *izond* eugenesiarena, eugenesiari dagokiona.

Zaila da sinesten nazien ideologia arrazista ez dela elikatu mendearen hasierako ideia **eugenesikoetatik**. Juan Garzia

"XX. mendeko mito" guztia odolaren (biologikoa) eta arimaren identitatean jaikitzen da (hori da programa **eugenesikoen** arrazoia ere). Joxe Azurmendi

---

eugenismo *iz* eugenesia.

Bada, honatx: gizon haiek ez dutela modu aski kritikoan hausnartu **eugenismoaren** nozioa bera eta hark inplikatzen duena. Juan Garzia

---

eukalipto *(ETCn **216** agerraldi; orobat **eukaliptu** **11** agerraldi; **eukaliptus** **20** agerraldi eta **eukalitu** **9** agerraldi) iz* jatorriz Australiakoa den zuhaitza, medikuntzan erabiltzen diren usain biziko hosto puntadunak dituena *(Eucaliptus* sp.).

Heinrich zen, patioko **eukalipto** baten adaburura igota. Fernando Rey

Eukaliptus horiek guk aldatu genitian. Pablo Sastre

Santiagora heltzeko egun bat falta zitzaiola, aurrean zituen **eukalituen** usain on berezia senditu duke, hil aitzin. Piarres Aintziart

Limoiondoz eta **eukaliptoz** mugatutako ibaitxo baten ondoan zehar joan zen limusina. Jon Muñoz

Termitek zulatutako **eukaliptozko** enbor huts bat. Berria - Kultura

Argentinan 500.000 hektarea **eukalipto** landatuko balira, karbono dioxidoa xurgatzeko, bistan da 500.000 hektarea galduko liratekeela elikagaiak sortzeko. Berria - Gaiak

Orain bost daude, sendo eraikiak, zementuzko zoruekin, zutoin eta habe galbanizatu eta sare lodiekin, australiar **eukalipto** gazteen itzalpean. Oskar Arana

Haize bero batek erraztatzen zuen, 1962ko agorrilaren 5 hura egun bihurtu aitzin, Brentwoodeko Marilyn Monroeren etxea gerizatzen zuten **eukaliptus** gorakoien puntak inarrosiz. Itxaro Borda

Eukalipto baltsamikoak eta noizbait gorrimin izandako etxe arrosakolore luze hura irudikatzea zen, hain zuzen, haren oroimenaren ohituretako bat. Juan Garzia

Hiriko azken auzunea zeharkatu genuen, eta **eukalipto** sail batean gelditu zenuen taxia. Josetxo Azkona

Gero, altxa, gauzak eta umeak bildu eta etxerantz bueltatzen ziren astiro, **eukalipto** basoaren albotik pasatuz, arbola tantaien usain biziaz eta euren adiskidetasunaz gozatuz. Xabier Montoia

Judu gazte batzuek lurra lantzen eta ereiten zuten, zingirak lehortzen zituzten, **eukalipto** zuhaitzak landatzen, beduinoen kontra borrokatzen ziren. Koro Navarro

Hantxe jaitsiak ginen, Atenas baino hirurogeita hamasei kilometro lehenago, hori ziur nekien, gogoan baineukan **eukaliptus**-etorbide batean ikusitako errotulua. Joxe Austin Arrieta

Hau da, soildutako lurretan, pinuak eta **eukalipto** arbolak sartzea. Berria - Gaiak

"Aracruz Celulose" enpresa handiak 60.000 hektara lur beretuak ditu, **eukalipto**-ondoak landatzeko, 65.000 familia lurrik gabe utziz, miseria gorrienean. Herria

Presoei baino kontu gehiago egiten dio **eukaliptu** hostoari agureak, atzamarrak listuan busti eta orria garbitzen ari da. Koldo Izagirre

Eukaliptus lurrinezko arnasaldi batzuk egin, dutxatu eta kalera irten nintzen. Karlos Linazasoro

Whiskya ere badaukagu, baina whiskya nahi baldin baduzu, **eukaliptu** karameluak ere erosi beharko dizkiguzu. Koldo Izagirre

---

eukaliptu ik **eukalipto**.

---

eukaliptus ik **eukalipto**.

---

eukalitu ik **eukalipto**.

---

eukariota *izond* zelulez mintzatuz, material genetikoa kokatzen den gune berezitua duena.

Eta ez zegoen artean modurik azterbide hori erabiltzeko **eukariota** deritzen organismoen kasuan. Juan Garzia

---

eukaristi ik **eukaristia** **3**.

---

eukaristia *(orobat **eukariztia** g.er.)* **1** *iz* Jesukristok, bere heriotzaren oroigarri, Azken Afarian ezarri zuen sakramentua; jaunartzearen sakramentua eta zeremonia.

Elizari erabateko benerazioa aitortzen dio, haren eskutik hartzen baititu berak maiteen dituen dohainak: hitza eta **eukaristia**. Askoren artean

Jainkoa bazela erakusten eta haren izatea frogatzen saiatu zen San Tomas Aquinokoa, eta dogmak (Hirutasuna, munduaren sorrera eta **Eukaristia**) arrazoiaren bidez interpretatzen ahalegindu. Berria - Kultura

Katedralean bildu ziren **eukaristia** ospatzeko eta predikaziorako.Eta egunero presente egiten da Frantziskok hainbeste aldiz aipatzen duen **Eukaristian**, Kristoren gorputz eta odolaren misterioan. Askoren artean

Erdi Aroan bi hitzok "sagaratzea" adierazten zuten, bereziki **Eukaristiako** sakramentuari dagokionean. Askoren artean

Maiz jaunartzea gauza bikaina bada, beren baitan hazkuntza eta aurrerakuntza sumatzen dutenentzat, eta **Eukaristiaganako** maitasuna eta desira dutenentzat, zer dela-eta ez zaie ongarri gertatuko egunero jaunartzea? Joan Mari Lekuona

Sinodoa, **eukaristiaren** inguruan: Urrian gotzainen sinodoa gotzainen biltzar berezia, katolikoen buruzagi nagusiak deituta egiten da hasi zen. Berria - Gaiak

Jaunak **Eukaristiaren** opari txit santua sortu zuen, bere maitasun-ezaugarri bereziena, esanez: "Hartu eta jan". Patxi Altuna

Apaiza aldare atzera doa, **eukaristiarekin** jarraitzera. Pako Aristi

Nola Jesu Kristoren gorputz guztiz saindua **Eukaristiako** sakramentu hazkurri eta miragarrian aurkitzen baita oso osorik ogiaren eta ardoaren itxura osoan ala itxura bakoitzaren baitan ala haren zati bakoitzean. Piarres Xarriton

Sarri aipatzen ditu Frantziskok Jainkoaren Hitzarekiko eta **Eukaristiarekiko** begirunea eta ardura, funtsezkoak baitira, izan ere, Frantziskoren kristau-bizitzan. Askoren artean

Eguerditan xuxen hasi da **Eukaristia**, Pierre Molères Jaun Apezpikua Biltzarburu, hogoita hamar bat apezez eta Frantsiskotar zonbaitez inguraturik. Herria

· **Eukaristia** golkoan gorderik zeramala fedegabeek hil arte harrikatu zuten ume hura Ramon Saizarbitoria

2 (izenondoekin)

Eukaristia txit santua urtean behin hartzea. Patxi Altuna

Eukaristia bakarra, anaiartea bakarra delako. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan, orobat **eukaristi**)

Oroitu nintzen orduan ikusia nuela aspaldi Baionan, oraino kardinale soil zela, gaitzeko elizkizun jendetsuak izan zirelarik **Eukaristia** Kongresuan. Piarres Aintziart

Aita Sainduak ofizialkibere lehen ateraldia Vatikanotik eginen duela jakinarazi du: hori izanen da Italiako Bari hirian, han egin beharra den **Eukaristi** Biltzarraren bururatze egunean. Herria

Gutun zirkularrak dira, motibazio eta helburu bera dutenak: Frantziskoren esku-hartzea Honorio III.aren **"eukaristi** gurutzadan". Askoren artean

Oinezko beilariak eta autoz jinik ziren laikoek eta apezek ospatu dute elgarrekin **Eukaristia** Orriako Andredena Mariaren inguruan. Herria

Frantziskok bere misio-aldian jarraituko dio Jesusi; Klarak, berriz, bere basamortu-, gurutze- eta **Eukaristia**-aldian. Askoren artean

4 irud/hed

Maisua gurutzean hil eta izuaren izuz sakabanaturiko Emausko dizipuluak bezala ikusten ditu Ortega-k [...] Quixoteren inguruan euren negarren **eukaristia** ospatzen: [...]". Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta eukaristia (4); **eukaristia eta** (4)

---

eukaristiko *izond* eukaristiarena, eukaristiari dagokiona.

Festa egunetaz asko akordatzen naiz: ziren ostegun **eukaristikoak**, lehendabiziko jaunartzea eta Korpusetako lore eskaintzak. Arantxa Iturbe

Adorazio eta Sakramentu Gurtza guztiek, eta Biltzar **Eukaristikoek** zaindaritzat aukeratu dute. Pello Zabala

---

eukariztia ik **eukaristia**.

---

euki ik **eduki**[1].

---

eukitsu ik **edukitsu**.

---

euklidear *(orobat **euklidiar** g.er.) izond* Euklides greziar matematikariari dagokiona.

Batuketa, kenketa, biderketa, baina, batez ere, zatiketa (zenbakien zatiketa **euklidearraren** prozedura polinomioen zatiketari aplikatu zion) eta, baita ere, polinomio baten erro karratua. Jon Muñoz

Branka aurretik pasatuko dira istriborretik ababorrera, eta alderantziz, lerro zuzenak eta kurbak, batbateko angeluak eta hiperboleak marraztuz, geometria **euklidearraren** postulatu guztiak endredatuz. Joseba Sarrionandia

Kanten obrak pizturiko eztabaida eta pentsamendu mugimendu garrantzitsuenen berri ere ematen digu, jakintza molde diferenteetan izaniko inplikazioak barne -mekanika kuantikoan, erlatibitatean, matematika ez- **euklidearrean**, adibidez-. Markos Zapiain

Geometria ez- **euklidearrak**: Gauss, Lobatchevski, Bolyai, Riemann. Jon Muñoz

Euklidear porrokatua zen, beraz. Jon Muñoz

---

euklidiar ik **euklidear**.

---

euleriar *izond* Leonhard Euler matematikariari dagokiona.

Lehen motako funtzio **Euleriarra**, edo beta funtzioa; eta bigarren motakoa, gamma funtzioa. Jon Muñoz

Pluralak: zenbaki **Euleriarrak** (Euler-en zenbakien bestelakoak), konbinatorian; eta garapen **Euleriarrak**, zenbaki konplexuen sinuentzat eta kotangenteentzat! Jon Muñoz

Ez dezagun ahaztu begiztarik gabeko grafo baten kate **Euleriarra**. Jon Muñoz

Ziklo **Euleriarra** eta grafo **Euleriarra**. Jon Muñoz

---

euli *iz* **1** aho xurgatzailea eta bi hego garden dituen intsektua, udan, pertsonak eta abereak bizi diren lekuetan, ugaria (*Musca domestica* etab.)

Euli bat pausatu zaio kopetan eta esku ezkerraz uxatu du. Pello Lizarralde

Eulia hegan hasten da, biraka, itzuli egiten da, berriro han kokatzen. Oskar Arana

Eusebio iritsi denean, kikaran bi **euli** daude azukre hondarretan milika. Alberto Barandiaren

Euliak begi gainetan zituzten umeak. Berria - Kultura

Euli horiek helduz gero tifusa, legenarra, minbizia eta hazteria biltzen ziren. Pello Lizarralde

Euli horren genoma osoa sekuentziatuta daukagu. Berria - Gaiak

Soroeta geureganatuta gero, Erromesene erdian geldituko da, armiarma-sarean harrapatutako **euli** bat bezala. Joan Mari Irigoien

Drosophila melanogaster intsektua, frutaren **eulia** , erabiltzen du ikerketak egiteko. Berria - Gaiak

Giro itogarri eta zentzugabe hartan kristal bat zeharkatu nahi duen **eulia** bezain ezgai sentitzen zen. Aritz Gorrotxategi

Hondakin organikoak ezin dira etxebizitzetan gorde, usain txarra dutelako eta **euliak** erakartzen dituztelako. Berria - Euskal Herria

Keinuak egiten zituen besoekin **euliak** harrapatzen ariko balitz bezala. Pello Lizarralde

Gorotzak zeuden lurrean, gordelekuaren inguruan, eta **euliak** hegan zebiltzan bizkor, gorotzen eta erretiluaren artean. Juan Kruz Igerabide

Esku-keinu batez bidaltzen nituen, **euliak** uxatzen ditugunean bezala. Fernando Rey

Euliak akabatzeko benenoa. Pako Aristi

Iruditzen zitzaidan bere hitz haiek **euliak** bezala zebilzkidala buruaren inguruan jiraka, gero eta katramilatuago, gero eta abaila handiagoan. Bernardo Atxaga

Elezaharrak dioenez, Oktabianoren legionarioek eraso egin zuten, baina euskaldunak garaiezinak ziren Zelatun inguruko mendiotan, eta erromatarrak **euliak** balira bezala erori ziren. Martin Anso

Igeltsuzko eta letoizko santuak eta estanpa zaharrak, **euliek** zikinduak. Koro Navarro

Belar metak eta gizon bat orga batean geldi-geldi, **euliez** inguratuta. Koro Navarro

Kristalen aurka hiltzen diren **eulien** gisan talka egiten dute tanta lodiek leihoan. Urtzi Urrutikoeetxea

Euliaren listu-gurinetako kromosoma erraldoiak. Juan Garzia

Egiptoarrak larrapoteen eta **eulien** sastadaz hil ziren, bizirik jarraitzeko sendagairik aurkitu gabe. Elizen arteko biblia

Gauza batek bakarrik kezkatzen zuen Héraclius bere gozamen harro hartan, animaliak etengabe elkar jaten ikusteak, armiarmak **eulien** zelatan, txoriak armiarmak harrapatzen, katuak txoriak marraskatzen. Josu Zabaleta

Arratoietan, **eulietan** , harretan..., gene asko berdin-berdinak dira. Pello Salaburu

Eulientzako paper zerrendak zeuden sukaldean zintzilik. Joseba Sarrionandia

Ez zen aditzen **eulirik** ere, eltxorik ere. Fernando Rey

Iritsi nintzenean, Jakob Al Saura irakurtzen ari zen, Baas-en egunkaria, aurrean te katilukada bat zuela, **euliz** inguraturik. Juan Kruz Igerabide

· **Euliak** baino **euliagoak** ! Daniel Landart

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Faxistak **euli** berdeak bezalakoak dira: pausatzen diren lekuan pausatzen direla, euli-kaka bertan. Anjel Lertxundi

Central Parken **euli** bereziren bat omen dabil uda honetan gaixotasun tropikal sendaezin bat zabaltzen. Harkaitz Cano

Zein **euli** gaiztok heldu dik orain? Pablo Sastre

Alferrik zen, Boris Ephrussik eta George Beadlek egiten zuten moduan, **euli** mutanteetatik organo bat hartu -begia, esate baterako- eta **euli** normalei txertatzea. Juan Garzia

Mutazio batek berekin badakar garapenaren anomalia bat, **euli** itxuragabe bat, beldar gaizki eraiki bat agertzea. Juan Garzia

Gauza beltz eta txiki bat herrestan zebilen, gelako berotasunak suspertutako udazkeneko **euli** berankor bat inondik ere. Jose Morales

Oilo luma arinak, urre kolorekoak, nabarrak, putz egin eta hegaka goratzen zirenak, **euli** burrunbariak eguzkitan egiten duten legez. Karlos Zabala

Hantxe irakurtzen, kandela-argitan, kolorezko **euliak** inguruan burrunbaka zebiltzala, Hispaniolako eta Dortokaren uharteko piraten ekintzak. Juan Garzia

Amerikar bat izan zen, Thomas Hunt Morgan, ozpineko **eulia** estreina altxatu zuena ondoretasuna aztertzeko objektu hauta izatera. Juan Garzia

Ozpinaren **euli** koxkor hori Harvard-eko unibertsitateko laborategi batean agertu zen plazara, mendearen hasiera-hasieran. Juan Garzia

Euli hil itsatsiz beteak. Joseba Sarrionandia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kontua da zipriztinduta utzi ohi dudala bainugelako ispilua -garai batean baserrietako bonbillak **euli** kakaz bezala, baina zuriz-. Bonbilaren argia ere, **euli** kakek ahultzen zuten. Ramon Saizarbitoria

Euli -enbrioiaren bizitzaren lehen urratsetan parte hartzen duten eragiketak zuzentzen dituzten gene guztiok, hain zuzen, beste gene batzuen gain eragiten dute, ADN segmentu hori ARN gisa transkribatzeari baietz edo ezetz esanez. Juan Garzia

Sabaian, **euli** -kume bat armiarma-sare batean trabatu da, astindu eta borrokan dabil. Itziar Otegi

Larre-saguak korrika bizian nire ondotxotik, ziraunak, armiarma erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, erletzarrak, ezparak, **euli** -mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerrak, txirritak. Joxean Sagaztizabal

Poltsikotik, han ateratzen zuen **euli** -kaiola bat, kortxo batetik ebakitako bi xaflatxo orratzezko hesi gisako batez elkarri josirik egina. Juan Garzia

Euli -saldo baten burrunba ateratzen zuen aire beroak, eta airean jasotako aizkora-ahoaren moduko distirak egiten zituen argiak Denak isilik eta pentsakor geratu ziren, **euli** burrundara entzuteko moduan. Anjel Lertxundi

Ostruka-lumaz egindako **euli** -zanpagailu bat. Oskar Arana

Baztertuak genituen ordurako hainbat tona esmalte beltz, zeinak, saiaturiko zuzenketa guztien despit, eman ondoren likatsu irauten baitzuen eperik gabe, **euli** -akabatzeko paper goibel baten gisa. Juan Garzia

Eulirik abe, ez da **euli** -uxatzekorik; **euli** -uxatzekorik gabe, ez da Alger-eko deirik ez kontsulik. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Haragi- **eulia"** , esaten du Bev Shaw-k. Zer egin, bada, giza- **euliok** , Amaraun ezinbestekoan galdu arte? Oskar Arana

Uste dut Gizon **Eulia** zela pelikularen titulua. Patziku Perurena

5 ***euli beltz*** eulitzarra.

Herritik, landatik, egurats gardenetik isiltasuna iristen zen, oilarren urrutiko kakarazak baizik hausten ez zuena; **euli beltzak** eta liztorrak eguzkitan distiratzen zeuden. Josu Zabaleta

Euli beltzari buruzko *simulium ornatum* ikerketa bat egiten ari zirenean aurkitu zuten lehen eltxoa, abuztuaren 10ean. Berria - Gaiak

Behialako edangi edo büveta izugarri haietan gurutzatzen eta mintzatzen genituen asko plantatzen ziren hogei urte beranduago, gauez huts zeuden bide hegietan jazartzen zitzaizkigun saltoki prekarioen itzalpean edozer saltzen, uda mineko **euli beltzen** zurrunga lagun. Itxaro Borda

Hortxe uzten dut, mahai gainean; urrunetik irakurtzen dut, baina nire buruak eta nire begiek ez dute ezer jasotzen; nik han **euli beltz** hilak ikusten ditut bakarrik; beraz, ahaleginak egiteari uzten diot. Eskarne Mujika

6 ***euli kaka*** *(orobat* ***eulikaka*** *g.er.)* euliaren kaka.

Bonbilaren argia ere, **euli kakek** ahultzen zuten. Patziku Perurena

Kontua da zipriztinduta utzi ohi dudala bainugelako ispilua -garai batean baserrietako bonbillak **euli kakaz** bezala, baina zuriz-, eta hura garbitzen zihardiela Florak. Ramon Saizarbitoria

Ohikoa baino tanta mardulagoren batek hitzen edo lerroren baten irakurketa eragozten zionean, ez zion **euli-kaka** batek utzitako arrastoari baino garrantzi gehiago ematen Artean Seigarren Etorbidean eta Hamalaugarren Kalean linterna magikoak zeuden, **euli-kakaz** beteak, eta han nickel baten truke antzeman zekiekeen atzo-herenegun horailei. Anjel Lertxundi

Faxistak euli berdeak bezalakoak dira: pausatzen diren lekuan pausatzen direla, **euli-kaka** bertan. Anjel Lertxundi

Euli-kaka [...]: Puntuazioaren aurrekaria. Xabier Olarra

7 euli-mando *(orobat* ***eulimando****)* mandeulia.

Eltxo nahiz **euli-mandoak**, tximeletak eta matxinsaltoak. Pello Zabala

Ordu freskagarriak alturan, gerizpe beharrik ez ordu horietan, eta eulitzar eta **eulimando** eta egarriak gutxien penatzen gaituzten orduak izaki. Pello Zabala

Ezparak, **euli-mandoak**, ehunzangoak, [...]. Joxean Sagaztizabal

· *irud/hed* Madrilgo mutil bat da **eulimandoa**. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

anaia eulia (7); **ari den euli** (3); **atera zen eulia** (3); **baina euliak** (3); **beste euli** (3); **bi euli** (3); **den euli** (8); **du euliak** (3); **duen eulia** (3); **dut euli bat** (3); **eta euli** (14); **eta euliak** (23); **eta eulien** (6); **euli bat** (51); **euli bat bezala** (3); **euli bat gordetzen** (3); **euli bat harrapatu** (3); **euli batek** (6); **euli baten** (23); **euli bati** (4); **euli edo** (3); **euli eta** (7); **euli heldu** (3); **euli horiek** (3); **euli horrek ez** (3); **euli itsua** (3); **euli kaka** (4); **euli saldo** (3); **euli uxatzailea bularraldean** (3); **eulia amaraunean** (3); **eulia bezala** (3); **euliak bezala** (9); **euliak dira** (3); **euliak ere** (3); **euliak eta** (4); **euliak ez** (7); **euliak ez dira** (5); **euliak harrapatzen** (5); **euliak hegan** (3); **euliak uxatzen** (5); **euliaren kasuan** (3); **eulien antzera** (3); **eulien bazka** (8); **eulirik ere** (3); **eulirik ez** (5); **hiru euli** (4); **osoan euli** (3); **sartutako euli** (3); **zen eulia** (5); **zenbait euli** (3); **zituen euli** (4); **zuen euli** (4)

---

eulidun *izond* euliak dituena.

Zakurrak zaldundu behar beherago // iristeko; orduan Zaldun zakurdun // ginateke, edo Zaldun **eulidun**, // San Extoanen Ordenako zaldun, // San Phantzarten zaldun kokots-handiak. Xabier Olarra

---

eulikaka ik **euli 6**.

---

eulimando ik **euli 7**.

---

eulimusika *iz adkor* eulien musika.

Ezin ote zuen akaso Van Gogh batek kromorik pinta, edo Beethovenek txaloak jasotzeko **eulimusikarik** egin? Patziku Perurena

---

eulitako *iz* **

Badago idolo sabelandi bat, idi muturra du eta lepokoa, eta beso lodi motz pare bi, atzean sasi handiak inarrosten direla **eulitakoak** antzo. Koldo Izagirre

---

eulitegi *iz* eulien tokia *(irudizko adieran).*

Zenbait ikasle bereziki argi hartu -Bridges, Sturtevant eta Muller-, eta harrezkero **"eulitegia"** esan zitzaiona antolatu zuen haiekin. Juan Garzia

Eulitegian, etengabeak ziren trukeak. Juan Garzia

Eulitegiko jardunak hogeitsu urtez aurrera segitu zuen Columbia unibertsitatean. Juan Garzia

---

eulitero *iz adkor* mosketeduna, mosketaria.

D'Artagnan eta hiru **euliteroak** bihurtu ziren Koro, Joxe Mari, Pablo eta Miren; bai, apaizak harrika bota zuen sotana, Mireni eskua eskatu, eta Mirenek eskua eta beste guztia eman zion; Don Kauen eta gure irakasle maitearekin a ze parrandak egin zituzten, uda epel hartan. Joxean Sagaztizabal

---

eulitsu *izond* euli asko duena.

Pasa ahala, bide erdiko gorpuak eta odoleztutako janzkiak dozenaka, mando-gorpu kirats eta **eulitsuen** artetik, batera eta bestera baztertu gabe. Txillardegi

---

eulituta *adlag adkor* zapuztuta.

Eulituta dago donostiarra. Jokin Urain

---

eulitxa *iz* eltxoa.

Gainerakoan, deus guti: kaka usain mina karriketan, **eulitxen** eraso etengabea gauetan, eta narriadura eta ezerosotasuna gure amaren familia belaunaldiz belaunaldi hazi zuen etxetzarrean. Aingeru Epaltza

---

eulitxo *iz* euli txikia.

Inguruetan zebiltzan **eulitxo** eta eltxoak harrapatzeko izugarrizko trebezia erakusten zuten. Gotzon Garate

---

eulitzar *iz adkor* euli handia; ezpara.

Ordu freskagarriak alturan, gerizpe beharrik ez ordu horietan, eta **eulitzar** eta eulimando eta egarriak gutxien penatzen gaituzten orduak izaki. Pello Zabala

Abuztuko egun beroetan han itzalean lo egin zitekeen, txorien txorrotxioek eta **eulitzarren** durundiak urrumaturik. Koro Navarro

Zzziiiuu bruumm eginez erortzen ziren puntuak, eta dena dardaratzen zen, eta lurrikararen gainean jirabiran jarraitzen zuten aireplanoek, **eulitzarrak** haragi ustelduaren gainean bezala. Joseba Sarrionandia

Hala egin zuen Jaunak: saldoka etorri ziren **eulitzarrak** Faraoiaren eta funtzionarien jauregietara eta lurralde osora; **eulitzarrek** dena hondatu zuten. Jose Antonio

Mujika

Laugarren izurria: **eulitzarrak**. Jose Antonio Mujika

Ondo gogoan daukat sintonia ere: Rimski-Korsakoven ***Eulitzarraren*** *hegada* obra bizitik hartua zegoen. Pello Zabala

Eulitzar berdeak eta urdinak jira-bueltaka ibiltzen. Txillardegi

---

eulixka *iz* eulitxoa.

Orotako esku-makilak, Furrustako eta Marizartako kupla ezinago joria txispaz armaturik, ez urrun trabukariak, Zirikarroltze, Esgot, Uzkipitxer Arnega eta Doilor Tutuluti profesurrak eta **eulixka** ikasleria, eta Errient Errieta marimaisuen leinua. Jose Angel Irigaray

---

eultze *iz* erlauntza.

Altuna jaunak jakin behar luke lizarra zahartzera bihotzetik hasten dela usteltzen eta barrenustutzen, eta hain zuzen ere, lizar zahar barrenustu horiekin egiten zirela maiz **eultzak** edo erlauntzak edo Azpeitiarren esanera erlekutzak. Patziku Perurena

-Jainkoak madarikatuko al hau, **eultza** halakoa! -esan zuen Don Kijotek. Patxi Ezkiaga

Eultza halakoa: babo arraioa. Patxi Ezkiaga

---

eultzi *iz* narra. ik **lera**[1].

Errege zuhurrak gaiztoak haizatzen ditu, **eultziak** garia bezala zanpatzen. Elizen arteko biblia

Garia bai, **eultziaz** zapaltzen da, baina ez etengabe jotzen; gurdia erabiltzen da gainean jiraka, baina alea txikitu gabe. Elizen arteko biblia

Begira, neure idiak emanen dizkizut erre-oparirako, **eultziak** egurretarako eta garia eskaintzarako. Elizen arteko biblia

Anisa ez da, noski, **eultziaz** jotzen, ez eta kuminoa ere gurdia gainean jiraka erabiliz; baizik eta makilaz astindu ohi da anisa eta zigorrez kuminoa. Elizen arteko biblia

Eultziaren antzeko bihurtzen zaitut, hortz zorrotzeko **eultzi** berriaren antzeko. Elizen arteko biblia

---

eumenide *iz* milologia klasikoan, gaizkileen aurkako jainkozko mendekua gautzatzen zuten hiru jainkotzakoetako bat.

Edipo eta Esfingea, lurrontzi puskatu batean ume-marrazkieran pintatuak, Atenea, Erineak edo **Eumenideak**, edo dena dela derizten zer horiek guztiak, Hannarentzat, egiazko dira, ez alegiazko. Joxe Austin Arrieta

---

euntze *iz* pentzea, larrea.

Euntze bat -**euntze** triste bat- zen jabez aldatu, lau erregu eta bortz sagarrondo guztira, Migel Mailuren etxeari zola eman ziezaion. Aingeru Epaltza

---

eunuko *iz* gizon zikiratua.

Bazen Harun kalifa eta bazen Giafar **eunukoa**. Koldo Izagirre

Bazkaldutakoan, Adjib eta **eunukoa** kanpamendura itzuli ziren. Patxi Zubizarreta

Zheng He (1371-1433) Ming etxeko enperadoreen **eunukoa** zen. Berria - Gaiak

Berarekin zihoazen **eunukoak** danbor joka ari ziren eta berarekin zihoazen emakumeek, bularrak airean, distira egin zuten ilunabar apalean, eguzkiaren ordezko balira bezala. Felipe Juaristi

Teodorak, Justinianoren emazteak, gizonak **eunuko** bihurtzen ikustea zuen gogoko; eta Mesalina masturbatu egiten zen, zenbait gizon bere begien aurrean, kanpaia jotzearen jotzez, guztiz ahituta hiltzen ziren bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hemendik harantz, **eunukoak**, esklabuak, morroiak, ehunkiak, larrukiak eta armak eramaten zituzten, batik bat. Patziku Perurena

---

eupada ik **aupada**.

---

eupadaka ik **aupadaka**.

---

euragindu ik **euroagindu**.

---

eurasiar **1** *izlag* Europarena eta Asiarena, Europari eta Asiari dagokiena.

Mendebaldearen posizioaren arriskua garai hartan areagotu egiten zuen Mendebaldeko Kristau Gizartea **eurasiar** kontinenteko penintsuletako baten muturrean egoteak. Iñaki Mendiguren

Itsaso Beltzaren iparraldeko lehorrekoentzat, **eurasiar** estepako nomadak izan edo [...] Lur Beltz zerrendako **eurasiar** nekazariak izan, Europa eta Asiaren arteko bereizketak ez zuen zentzu ulergarririk. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsal siniko baten muga zaintzen zuten goarnizio-katean zehar **eurasiar** estepako nomaden aurka egiten ari zen bidaia. Iñaki Mendiguren

Aurreko testuinguruetan ere aurkitu ditugu filosofia higuingarri honen praktikatzaile klasikoak, herri sedentario konkistatuen gain beren agintea ezartzen noizean behin arrakasta izan zuten **eurasiar** horda nomadetan. Iñaki Mendiguren

Desintegratzen ari zen Zibilizazio Sinikoan mahayanaren arrakasta askoz beteagoa izan zen Ibai Horiaren arroan, **eurasiar** nomadek inbadituan, Yangzi arroan baino, non atzera eutsi baitzitzaien luzaroan. Iñaki Mendiguren

2 *iz* eurasiar kontinenteko biztanlea.

Europar, **eurasiar** eta asiarren estatus uniformeak Indian Britainiar Inperioaren pean, eta europar, kreol eta "indiarrenak". Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eurasiar estepako (3)

---

eureganatu ik **eurenganatu**.

---

eureka *interj* zerbait aurkitzen denean sentitzen den poza adierazteko hitza.

"Eureka !" hots egin genuen halako batean, eta lanari lotu gintzaizkion suharki, abertzaleen eta ez hain abertzaleen liliputitisa arintzea helburu. Bernardo Atxaga

Bat-batean, Pirpok dantza alai bati ekin zion, eta jauzika jo zuen Txanberlainek lo egiten zuen gelara. **"Eureka** !" hots egin izango zuen esamoldea ezagutzera. Bernardo Atxaga

Eureka ! Oso asmakizun ona izan zen, eta halaxe bihurtu ziren narrastiak lehorreko maitale. Luis Elberdin

Eta hara zer txiripa, zer txanpa eta zer kointzidentzia: Elsaren hatz-markak bai, **eureka** , haiek bat zetozen errebolberrari itsatsitakoekin. Harkaitz Cano

---

eurenganatu, eurengana(tu), eurenganatzen *(orobat **eureganatu**)* du *ad* eurengana bildu.

Lurzorua brontzez lantzen zuten, brontzez irabiatzen zituzten gerra olatuak eta zauri itzelak ereiten, eta lursailak eta abereak **eurenganatzen** , biluziek eta armagabeek aisa uzten baitzuten dena armadun haien esku. Xabier Amuriza

Bazirudien partida **eurenganatzen** hasiak zirela, baina hurrengo sakean Titinek airez erantzun zuen, bi pareta ederra egin, eta tanto. Berria - Kirola

Hilabeteak pasa, mugaldeko bonbardaketak amaitu, Francoren aldekoek Gipuzkoa **eurenganatu** eta Bizkaian sartu ahala, etxera itzuli ziren lehen boladan mugaz bestaldera joandako asko, eta Kataluniara pasa ziren beste hainbat. Jokin Urain

Ondoren grina eta berotasun bera itzultzen da, desio dutena **eurenganatu** guran, gaitza menperatuko duen trepetxurik ezin aurkituz: halakoxe noraezean ahitzen dira zauri ezkutuan. Xabier Amuriza

Izan ere, agiri hori da orain zabaldu nahi dutena, oraindik sinatu ez dutenek aztertu eta **eurenganatu** dezaten. Berria - Euskal Herria

Korsikako lurra Frantziatik edo Italiatik joandako espekulatzaileek **eurenganatzeko** arriskuan zegoela salatzen zuten. Berria - Harian

PS, PCF eta PRG sozialista, komunista eta ezkerreko erradikalek botoen % 40 **eurenganatu** zuten guztira. Berria - Mundua

---

euri **1** *iz* hodeietatik tantaka erortzen den ura.

Euri eta ihintz, bedeinka ezazue Jauna, goretsi eta goraipatu menderen mendetan! Elizen arteko biblia

Euria ari du oraindik, baina ez idolaz, atzo bezala. Jon Alonso

Blai eginda zetorren, eta ea **euria** ari zuen galdetu zion On Camillok. Koldo Biguri

Gogor ari zuen **euria** , elurrarekin nahasian. Eskarne Mujika

Kanpoan **euria** ari du etengabe. Berria - Kultura

Euria ari zuenean herrena areagotzen zitzaion. Jon Alonso

Elurra egin zuen negu hartan Bilbon, eta orain **euria** hasi du hemen. Aitor Arana

Bitartean **euria** hasi zuen berriro; manifestalariak lerro estuetan babestu ziren aurreko etxeetako teilatu hegalen pean, pareta kontran, ateetako zokoetan. Josu Zabaleta

Ontzia goizean porturatu eta eguerdi aldera **euria** hasi baitzen. Bego Montorio

Sartaldean lainoa ikusi orduko, **"Euria** dator" esaten duzue, eta hala gertatzen da. Elizen arteko biblia

Ez zaitez joan, eguna ilun dago, mundua iluna da, **euria** dakar eta haizea dabil. Sonia Gonzalez

Euria ekarriko duen ala ez ikusteko dago. Lutxo Egia

Euria bidaltzen du lurraren gainera, soroak ureztatzen. Elizen arteko biblia

Egin zion, bada, dei Samuelek Jaunari eta honek trumoiak eta **euria** bidali zituen egun hartan. Elizen arteko biblia

Emango dizuet **euria** bere garaian: lurrak bere uzta ekarriko du eta landako arbolek beren fruitua emango. Elizen arteko biblia

Pozarekin pena sentitu zuen, **euria** bota zuelako, goizalban. Unai Elorriaga

Azken bi hilabeteotan apenas bota duen **euririk** eta nekazariak kezkatuta daude lehortea inoiz baino handiagoa delako. Berria - Harian

Ez baitzuen **euria** atertzen. Berria - Kirola

Euria atertu zuela zirudien. Koldo Izagirre

Ez du inorekin topo egin tunel estuan; irteeran afixa batzuei begira gelditu da, **euria** noiz atertuko zain. Urtzi Urrutikoetxea

Euririk izan den behatu plubiometroan. Pello Zabala

Barkatu zeure zerbitzarien eta zeure herri Israelen bekatua, erakutsi ibili behar duten bide zuzena, eta isurarazi **euria** zeure herriari ondaretzat eman zenion lurrera. Elizen arteko biblia

Martxoko eguraldia, erdia **euria** eta erdia eguzkia. Pello Zabala

Abuztuaren amaieran bota zuen **euria** lagungarria izan da, estres hidrikoa zuten landa batzuen egoera hobetu baitu. Berria - Harian

Baso eta belar usaineko haize hotz batek putzuak izurtzen zituen **euriak** garbitutako kaleetan. Lopez de Arana

Abiadan sartu ziren Faedistarren patioan, **euriak** erdi jandako atetik zehar. Josu Zabaleta

Euriak karrika zolak distirarazten zituen. Itxaro Borda

Zeru zurixka hartan **euriak** zehar-arraia ilunak osatzen zituen. Bernardo Atxaga

Ni beldur nintzen (esperantza nuen) aterperik gabeko toki batean harrapatuko ote gintuen **euriak** . Juan Garzia

Euriak jaiaren hasierari distira apur bat kendu bazion ere, antolatzaileen asmo guztiak bete zituen Jaiki-04 herri jaien eta herri kulturaren aldeko ekimenak. Berria - Euskal Herria

Schenker doktorearen betaurreko distiratsuak, **eurian** zehar niri zomorro bati bezala begira. Alberto Ladron Arana

-Ez duzue hemen **euritan** egon nahiko, behintzat. Josu Zabaleta

Ama-alabek **euritan** blai zegoen lorategi ederra zeharkatzen zuten bitartean. Aitor Arana

Astelehena zen, eta **euritan** urperatzen segitzen zuen Comalako haranak. Juan Garzia

Eguraldia **euritara** zegoela bota nuen nik. Anjel Lertxundi

Beldur izatekoa zen, hala ere, eguraldiak ez zuen **euritara** egingo. Karlos Zabala

Euriaren kalte eta mesedeak. Berria - Mundua

Euriaren errezel grisa. Agustin Otsoa

Euriaren atabal kolpeak aditzen ziren leihoetan, ardien marrakak, antzaren karranka. Itxaro Borda

Euriaren jardun etengabea sentitzen zen leihoko kristaletan. Anjel Lertxundi

Euriaren musika maite zuen, tantaz tanta sabai gainetan desegitean. Felipe Juaristi

Ohean etzanda esna zegoen **euriaren** triki-traka etengabeari eta teilatu-hodien tanta-erortze txistukariari adi. Lopez de Arana

Izan ere, Fernando artzainaren sasoitik hona **euri** asko bota du eta ardiak erruz klonatu dira, pentsatzeko erak ez ezik. Iñaki Segurola

Euri asko bota du, eta kaminoak ere lupeztuta daude. Pako Aristi

Uholde-arriskua handiagoa izan ohi da [...] **euri** asko denbora laburrean egiten badu. Lourdes Oñederra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euri fina ari du soro-belazeen asean. Anjel Lertxundi

Berdin zitzaizkion tantatxo batzuk zein **euri** mardula. Xabier Amuriza

Haize kirriak granada-arbolaren adarrak astintzen zituen, **euri** lodi bat zurrustaka jariaraziz. Juan Garzia

Euri biziagatik leihatilak batere ireki gabe. Aitor Arana

Arratsaldeko **euri** epel nasaiak. Ramuntxo Etxeberri

Euri hotza tantaka jausten zitzaion lepoan behera. Lopez de Arana

Haize eta **euri** bortitzen menpe nago: galdua naiz. Itxaro Borda

Zirimiriak lekua eman zion arratsaldeko **euri** sarriari. Javi Cillero

Euri indartsua zena ekaitz bihurtu da azkenean. Aitor Arana

Euri kutsatuak eremu hezeetan dauden mikrobioak hiltzen dituelako. Berria - Gaiak

Ikatza erretzeak sortzen du gehienbat **euri** azidoa, % ia 60an, eta arroliotik deribatuek, % beste 30ean. Pello Zabala

Ilunabarra goibeltzen eta iluntzen zihoan neurrian, **euri** xeheak egin zigun bere seigarren bisita. Pello Zabala

Zerura begiratu zuen, kezkaturik, urte sasoi hartako **euri** berantiarrek sagarrei kalte handiak eragin zietelakoan. Felipe Juaristi

Euri artifiziala sortzeko sistema bat garatzen ari da Bruselako Unibertsitate Libreko eta Israelgo Ben Gurion Unibertsitateko zientzialari talde bat. Berria - Gaiak

Euri malenkoniatsu hark arratsalde osoan eta gauean iraun zuen. Bego Montorio

Simaur higuingarritik har bizidunak sortzen ikusten da, **euri** larregiz beraturiko lurra usteltzen denean. Xabier Amuriza

Gure izurririk latzena, baina, ez dira ez arratoiak ez arkakusoak, **euri** atergabea baizik. Mirentxu Larrañaga

Kanpoan etengabeko **euria** egiten jarraitzen zuen, batzuetan biziago eta besteetan motelago, baina beti atertu gabe. Aitor Arana

Onartu zuen, gainera, pobreziaren kontrako borroka bere bizitza osoko zeregina izan zela demoniozko **euri** haiez geroztik. Bego Montorio

Kanpoko **euria** ere entzuten zen. Aitor Arana

Eskatu Jaunari udaberriko **euriak**. Elizen arteko biblia

'Gu ez gara azken **euriarekin** jaio, Maribel,' dio Arantxak. Joseba Sarrionandia

Euri sare-sarea hasi zuen. Anjel Lertxundi

3 (adizlagun eta kidekoekin)

Kanpoan, **euria** atergabe ari zuen plaza zabal argi batean. Lopez de Arana

Tormenta izugarri bat izan genuen - **euria** goian behean-, eta gurdia lohitan sartua gelditu zitzaigun. Joan Mari Irigoien

Sare-sare ari zuen **euria**. Anjel Lertxundi

Euria ari du, geldo. Fernando Rey

Euria barra-barra ari zuen. Lopez de Arana

Euria goian-behean ari zuela, mendi-landetan bazkan ari ziren komarkako behi guztiak hurbildu ziren, halako batez, eliz ingururat. Joan Mari Irigoien

Euria bizkor ari zuen. Iñaki Zabaleta

Brigidak, **euria** gogotik ari zuela-eta, hiru aldiz egin zion etxe barrura sartzeko gonbita printzeari. Felipe Juaristi

Comalako haraneko landen gainera **euria** erortzen ari da. Juan Garzia

Xanpainaren gau hartan bertan bi trumoi lehertu ziren hiriaren gainean eta **euria** zakarki erori zen. Bego Montorio

Txirri-txirri ari zuen **euria**, aski bizi. Aitor Arana

Kanpoan **euria** jauts ahala ari zuen. Eneko Bidegain

Kalean **euria** bota ahala, ostatuan kopak beteta. Alberto Barandiaren

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Honek berehala baztertu zituen **euri** tantak ezker eta eskuin aldeetara. Aitor Arana

Euri haizea ere halatsu dator beti bide jakin batetik, eta hego haizea ere bai. Pako Aristi

Kristalean itsasten diren **euri**-tantei begira nago ni, eta faroleko **euri**-kono argitsuari. Xabier Mendiguren Elizegi

Leihoa, kristal zikina, **euri** tantoak kristal zikinean eta kaleko zarata igande eguerdian Urbieta kalean semaforoa berde jarri zain. Lourdes Oñederra

Egunsentian, **euri** anpulu lodiak erori ziren lur gainera. Hik ere aipatu dituk maiatzeko **euri**-egunak. Juan Garzia

Hirugarren egunean, bertan jarraitzen zuen **euri**-giro horrek. Bera ere halaxe geldituko zen, lasai eta zabal: ez zegoen **euri** arriskurik. Unai Elorriaga

Atsegingarria haren errukia atsekabealdian, **euri**-hodeiak lehortean bezala. Elizen arteko biblia

Harik eta zeruaren izkinetarik azken **euri**-laino mehatxugarriak eten, desegin, menperatu eta ehizatu arte. Itxaro Borda

Jakin bazekien Nafarroako **euri** ur gehienak Ebro ibaira doazela. Pello Zabala

Mendi arteko haranetan jasotzen da **euri**-urik gehiena. Santiago Iruretagoiena

Bidaia osoan **euri** zaparrada ugariak pairatu behar izan zituzten. Joanes Urkixo

Euri-jasak bata bestearen atzetik sartu ziren itsasotik, haize erauntsiek bultzaturik. Migel Angel Mintegi

1435ean, Madril aldean, egundoko **euri** - jasak izan omen ziren, astepare batean segido. Pello Zabala

Kalesako ibiltariak gogaitzen hasita zeuden etenik gabeko **euri**-zaramaz. Anjel Lertxundi

Seinalatu behar da, orain gutxi,1996an, La Palma eta Tenerifen gertaturiko ekaizte hura, zeinetan, **euri** eta haize erauntsiz, bi hildako eta zauritu mordoa izan zen. Pello Zabala

1626an, **euri**-erauntsi ikusgarriak, 20 eguneko jarraipena izan zutenak Andaluzia aldean. Pello Zabala

Bizirik gelditurikо israeldarrak, Jaunak bidaltzen duen ihintza bezala, belardira jaisten den **euri**-lanbroa bezala izango dira herri askoren artean. Elizen arteko biblia

Londresen **euri**-langarra ari du etengabe. Lutxo Egia

Eguzkia sartua zen Hernanira heldu ginenerako, baina zeruak berdin-berdin jarraitzen zuen **euri**-jario etengabean. Juan Luis Zabala

Orduan zeru sabaiak suhartzen du eta **euri** ekaitzak indartsuago abiatzen dira. Xabier Amuriza

Errogatibak, badakizue **euri**-beharrez egin izan zirela gehienbat. Pello Zabala

Orain gizon fin bilakatu zarela, baina jende askok gogoratzen zaitu oraindik Praia Brancan aitzurrari eraginez eta beleak uxatzen **euri** garaian. Bego Montorio

Urrian zeudenez eta **euri** hilabetea izan ohi denez, [...]. Bego Montorio

Euri igarle primitiboak. Pello Zabala

Eguraldia aldatu egin da eta **euri** hotsa aditzen da kalean. Jon Arretxe

Euri-usaina zerion ilunabarrari. Anjel Lertxundi

Euri mehatxua ez zen azkenean gauzatu. Berria - Kultura

Ibaiaren kanaletik sartzen zen ipar zuriak ez zekarren, ordea, **euri**-usainik. Anjel Lertxundi

Tximista batek argitzen du **euri**-sarea. Anjel Lertxundi

Larrean abere batzuk bazkan, eta honantzago hegazti ilun batzuk, **euri** ondoko lur hezean aztarrika. Patziku Perurena

Aurtengo tenperaturak ez dira iaz bezain garaiak izan, baina **euri** ezak lehorte latzagoa eragin du Gipuzkoako eskualde askotan. Berria - Ekonomia

Horrela, sabana, tundra, hosto erorkorreko baso epela, **euri** oihan tropikala, basamortu beroa eta taiga bezalako biomak aurkitzen dira mundu zabalean. Berria - Gaiak

· Egun **euri**-bustien umeltasuna batzuetan, bat-bateko trumoi eta osti-zaparrada bestetan. Pako Aristi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haize bortitzak eraginikako hareazko eta legarrezko lehen tormenta Jainkoaren eta goiko zeruen mana **euritzat** har dezan. Joan Mari Irigoien

6 irud/hed

Izarrezko **euria** ari zuen. Juan Garzia

Datorren astean, berriz, Liriden izar-**euria** ikusteko aukera izango da. Berria - Gaiak

Baina Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko **euria** egin zuen zerutik eta denak galdu zituen. Elizen arteko biblia

Jainkoaren santuak, zeruko graziaren ibai oparo bezala, jainko-dohainen **euriz** ureztatzen zituen guztiak, haien bihotzeko baratza bertuteen lorez edertuz. Askoren artean

Elur-**euria** ere bai, beheraka agudo eta txuxen jausten delako, pisutsu baitator. Pello Zabala

Bidal dezala txingarra eta sufre-**euria** horien gainera! Elizen arteko biblia

Kristal-**euriak** zarata izugarria atera zuen. Fernando Morillo

Noizbehinka arkupe azpira ere palastatzen da ura, loreak ere konfetti-**euri** gisa. Joxe Austin Arrieta

Urrezko hauts-**euri** gozo bat isurtzen zuen haurtzain narrasen eta bankuetan erdi lotan zeuden agure zaharkituen gainera. Irene Aldasoro

7 (egin aditzarekin)

Ez da batere ohikoa Turkiako lasterketan **euria egitea**. **Euria egiteko** itxura zuen, itsasaldetik sartutako lainoa ilunabarretik hedatua zen hirian, eta harekin iluntasuna. Berria - Kirola

Barrualdetik, berriz, hain **euri** gutxi **egiten** duenez. Pello Zabala

Begira nolako uda izan dugun: ez du batere **euririk egin**. Jose Morales

Ene, **euria egingo** balu, bederen! Lopez de Arana

Berrogei egunez **euria egin** zuen eta berrogei gauez **euria egin** zuen eta Gabonak arte ez zuen atertu. Bego Montorio

Eni berdin zitzaidan, **euri** ala ateri **egin** zezan. Daniel Landart

Otsailean eta martxoan **euri** gehiegi **egin** zuen. Berria - Ekonomia

8 ***euri giro*** *(orobat* ***eurigiro****)* giro euritsua.

Eta hirugarren egunean, bertan jarraitzen zuen **euri-giro** horrek, kalean eguzkia zegoen arren. Unai Elorriaga

Tenperaturek gora egingo duten arren, **euri giroak** ez duela etenik izango jakinarazi dute meteorologoek. Berria - Euskal Herria

Eguraldi berdotsa, **euri-giro** zetorrela? Pello Zabala

Sagar berdotza, ondo heldu gabeko, hortzkirri gazi latza egiten duenari esaten zaion bezala, bisaje batere onik ez duen eguraldi **eurigiroko** horri, berdotxa datorkio primeran. Pello Zabala

9 ***euri jasa*** *(orobat* ***eurijasa****)* euri zaparrada.

Nekez ateratzen dugu guardasolik kalera, ezta **euri-jasa** handienarekin ere. Iñaki Segurola

Euri jasa zakarren artean. Txillardegi

Euri jasa bortitz batek eragotzita. Josu Zabaleta

Euri jasa galanta bota du horretan. Txillardegi

Baina, setioak astebetez bakarrik iraun ondoren, eta gure mutilek azaroaren 12an, **eurijasa** etengabean, altxa zutenean, gerorako utzi bide zuen Buruzagitzak nire subataioa. Txillardegi

Kanpoan, zerua bitan zatikatu zen eta **Euri jasa** izugarria askatu zuen. Fernando Morillo

Atzo arratsaldean egundoko **Euri jasa** batek ustekabean harrapatu gintuela. Patxi Zubizarreta

Euri-jasa izan zen berrogei egun eta berrogei gauez. Elizen arteko biblia

Herri askoren gain **Euri-jasa** isuraraziko dut, kazkabar, su eta sufrez. Elizen arteko biblia

Biharamunean, **euri-jasapean,** batailoi osoa behartu zuten Charlieren zigorraren lekuko izatera. Mirentxu Larrañaga

· Sheela plaza bazterreko palmondo baten azpian dago kuxkurtuta, goitik behera montzoi **euri jasa** den bitartean. Gotzon Garate

· Beheko jostura askatu [zakuari] eta babarrun pinttozko **euri jasa** bat, edo, hobeto esanda, txingorraldi bat erori da airean eskaileretan behera. Josu Zabaleta

10 ***euri zirin*** euri lanbroa.

Haize mina dabil, dotorea aroa etxean utzitako **euri zirin**, narras, lorrinaren aldean. Iñigo Aranbarri

Euri zirina Chiapasen bezain zarratu datorkigularik, bidean elkarren ondoan datozen bi irudi eurizko dira. Iñigo Aranbarri

Hauts lainoak bustirik ez dela, **euri zirina** hasiz gero lokatza franko bada kaleetan. Pablo Sastre

Arrantzaleek bokarta adurra deitzen zuten **euri zirinarekin**. Joseba Sarrionandia

Londres **euri-zirina** da. Lutxo Egia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

baina euri (14); **batean euri** (7); **da euri** (8); **den euri** (5); **du euri** (8); **edo euri** (13); **eguzkiak euri** (5); **ere euri** (5); **eroritako euri** (5); **eta euri** (88); **eta euri jasa** (6); **eta euri zaparradak** (5); **euri ala** (6); **euri artean** (5); **euri artifiziala** (5); **euri asko** (27); **euri asko egin** (9); **euri asko egiten** (5); **euri azidoa** (6); **euri azidoak** (7); **euri azpian** (5); **euri edo** (7); **euri egin** (6); **euri egun** (8); **euri egunetan** (10); **euri erauntsi** (9); **euri erauntsia** (9); **euri erauntsiak** (10); **euri eta** (46); **euri fin** (7); **euri gehiago** (14); **euri gehien** (7); **euri gisa** (7); **euri gozoa** (5); **euri guti** (7); **euri gutxi** (11); **euri gutxiago** (6); **euri hotsa** (5); **euri jasa** (52); **euri jasak** (22); **euri jasek** (6); **euri jasen** (6); **euri kontuak** (6); **euri lanbroa** (7); **euri langarra** (9); **euri langarra ari** (6); **euri pixka** (5); **euri tanta** (29); **euri tantak** (36); **euri tantek** (12); **euri tanten** (5); **euri uhar** (10); **euri ura** (5); **euri urak** (15); **euri xehea** (9); **euri xorta** (9); **euri xorta bat** (6); **euri zaparrada** (28); **euri zaparradak** (12); **euri zaparradaren** (6); **euriak euri** (11); **ez euri** (7); **haize eta euri** (7); **sekulako euri** (5); **zen euri** (13); **ziren euri** (10); **zuen euri** (7)

alde bat euria (5); **ari zuen euria** (11); **baina euria** (13); **bat euria** (6); **berrogei egunez euria** (7); **da euria** (14); **du euria** (12); **edo euria** (11); **egin zuen euria** (5); **egunez euria** (8); **egunez euria egin** (5); **ere euria** (8); **eta euria** (101); **eta euria ari** (7); **eta euria egin** (5); **eta euria ere** (5); **euria ari** (172); **euria ari du** (39); **euria ari duela** (12); **euria ari duenean** (5); **euria ari zuela** (6); **euria ari zuen** (70); **euria ari zuenean** (6); **euria atertu** (11); **euria bada** (10); **euria bai** (5); **euria baino** (6); **euria balitz** (13); **euria bezala** (13); **euria bota** (14); **euria bota ahala** (5); **euria botatzen** (6); **euria da** (5); **euria dakar** (7); **euria dator** (5); **euria dela** (5); **euria delarik** (5); **euria edo** (12); **euria egin** (79); **euria egin du** (5); **euria egin zuen** (36); **euria eginen** (7); **euria egingo** (17); **euria egingo du** (8); **euria egitea** (6); **euria egiteari** (5); **euria egiten** (44); **euria egiten badu** (8); **euria egiten duenean** (7); **euria egiten zuenean** (6); **euria ere** (22); **euria eta** (55); **euria eta haizea** (5); **euria eta hotza** (7); **euria ez** (14); **euria gogotik** (10); **euria gogotik ari** (6); **euria goian** (18); **euria goian behean** (17); **euria hasi** (61); **euria hasi du** (9); **euria hasi zen** (5); **euria hasi zuen** (26); **euria hasten** (12); **euria izan** (12); **euria jauts** (15); **euria jauts ahala** (15); **euria laster** (5); **gauean euria** (5); **haizea eta euria** (10); **kanpoan euria** (21); **kanpoan euria ari** (13); **zen euria** (10); **zuen euria** (28)

baina euriak (7); **du euriak** (5); **du euririk** (10); **du euririk egiten** (5); **edo euriak** (5); **eta euriak** (35); **eta euriarekin** (5); **eta euriaren** (17); **eta euripean** (13); **eta euririk** (6); **euriak ere** (10); **euriak eta** (34); **euriak eta haizeak** (8); **euriak eta hotzak** (5); **euriak euri** (11); **euriak ez** (23); **euriak ez zuen** (7); **euriarekin eta** (5); **euriaren eraginez** (6); **euriaren eta** (10); **euriaren eta haizearen** (6); **euriaren gatik** (9); **euriaren hotsa** (6); **euriaren musika** (7); **euriaren seme** (6); **euriaren seme alabak** (6); **euriari begira** (13); **euriari eta** (6); **euriaz eta** (5); **euripean eta** (5); **euririk ari** (7); **euririk egin** (19); **euririk egin ez** (7); **euririk egiten** (13); **euririk ez** (21); **euririk gabe** (9); **euririk izan** (5); **euritan blai** (8); **euriz eta** (6); **ez du euririk** (9); **ez euririk** (7); **ez zuen euririk** (5); **haizeak eta euriak** (6); **zuen euriak** (8); **zuen euririk** (5)

---

eurialdi *iz* euria egiten duen aldia.

Honez gainera, urteko **eurialdi** jakin batzuk gabe, lurrak ezingo luke fruitu gozorik eman, eta animaliek ere, jana kenduz gero, ezingo lukete euren endarik zabaldu ez biziari eutsi. Xabier Amuriza

Eurialdia goizaldean gelditua zatekeen Aurelia Arkotxa

---

euribako *izond* euririk gabekoa.

Ez legoke gaizki: apiril azkenetik bi hilabeteko eguraldi **euribako** edo gutxikoa. Pello Zabala

Atera kontuak eta, gainerakoak, 14 alegia, **euribakoak**. Pello Zabala

euribor *iz* euroaren banku arteko merkatuaren batez besteko interes mota.

Horregatik handitu da, hein batean, mailegu hipotekarioak kalkulatzeko baliatzen den **Euriborra**. Berria - Harian

Aditu batzuek **Euriborrak** aurten gora egingo duela adierazi berri dute. Berria - Euskal Herria

Interes txikiko maileguak, berriz, kontratazioak laguntzeko erabiliko dira, eta eskuratzen dituztenek **euribor** gehi 0,5eko interesa gehituko beharko diote diru kopuruari itzultzeko orduan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
da euriborra (6); **den euribor** (4); **euribor indizea** (8); **euribor indizeak** (8); **euriborra azken** (4); **euriborra azken hiru** (3); **euriborra gehi** (3); **euriborrak behera egin** (3)

---

euridun *izond* euria egiten duena.

Hurrena, 2 gutxiagoz, 12 egun **euridun** dituela, Bilbo dator. Pello Zabala

Batenaz beste, zenbat egun izan ohi diren **euridunak** apirilean? Ba, begira: Bilbon 17 egunetan egin ohi du; Donostian 17.5, eta Gasteizen, 18 egunetan. Pello Zabala

Gasteizen egun gehiago dira **euridunak**, eta halere, askoz euri gutxiago. Pello Zabala

---

eurigintza *iz* euria egitea.

Barbarak errepika zezakeen eran, goiz gris hartan euria ari zuen Bresten baina euskaldun gisa bustitasun horrek ez ninduen batere trabatzen eta emeki emeki ene ustez amoroski, **eurigintzan** aski berezilari nintzenez: hondarrean uhar trinkoa baino, lantzerra, lantzurda, langarra zegien, malgu, ezti eta sarkor. Itxaro Borda

---

eurigiro ik **euri 8**.

---

eurijasa ik **euri 9**.

---

eurika *adlag* euriaren moduan.

André helmugara ailegatu zenean, musika-banda zoroen moduan hasi zen jotzen, txindata eta guzti, eta arrosa-petaloak bota zituzten **eurika** bere gainetik. Berria - Kultura

---

eurikara *izond* euria egitera jotzen duena.

Sabeth leiho barreneko karelean eserita, hankak gurutzaturik, oinutsik: gereziak jaten ari, kalera begira, eta hezurrak ttukatzen handik behera, eguraldi **eurikara**. Joxe Austin Arrieta

---

euriketa *iz* euri jasa.

Den bezala, hein batean begiratzen du, ibiltzeko doia bederen, ezen **euriketa** gaitzek urtean barna egin dugun lana andeatzen dute. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

eurikor *izond* euria egitera jotzen duena. *irud/hed*

Adi orain, humore **eurikorra** goi hodeietan nola kondentsatzen eta, jareinik, nola lurrera euri erortzen den azaltzera bainoa. Xabier Amuriza

---

euritako **1** *iz* aterkia.

Napumoceno jaunari kontseilatu zion guardasolak edo **euritakoak**, nahi zuen bezala, irletan kolokatzen saiatzeko. Bego Montorio

Anartean, bai uztailean eta bai abuztuaren lehen egunetan, Iparralde honetan dauden udatiarrek parasolak edo **euritakoak** erosi dituzte, ondartza gelditzen dela jenderik gabe, umezurtz. Bego Montorio

Eguzkitakoak **euritako** bihurtzen direnean, bistan dira ondoreak: batetik, berehala hondatzen dira, eta bertzetik, badakizu: euria euriago oihal bustiaren azpian. Joan Mari Irigoien

Euritakoa ezker eskuan, eskularruak, gabardina garbia, lepokoa eta kapela ingelesa puntu bat kopetarantz eroria. Iñaki Zabaleta

Haize-zirimola pasatu zen, eta baretasuna itzuli, **euritakoak**, hagatxo bat apurturik zeukan arren, bere betebeharra egiten segitu ahal izan zuen. Jon Alonso

Urtero-urtero, abuztuaren 4an, arratsaldeko seiak aldean, Zeledon pertsonaia Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazara jaisten da, **euritakoa** eta guztia, hiriko jaiei hasiera emateko. Berria - Kirola

Aitona, agorrilan bidez bahoa, eramazak erekin **euritakoa**. Pello Zabala

Euritakoa berriz zabalduz Lexington Hiribidean behera galdu zen euripean. Iñaki Zabaleta

Gizona isilik zegoen, mugitu gabe, eskuak **euritakoaren** eskulekuan jarrita. Joseba Urteaga

-Egin behar zena egin duzu, hark, Fantecchi andrearenganako suminaldiak mendean harturik, joka segitzen zuen zolan, haserre, **euritakoaren** muturrarekin. Irene Aldasoro

Holohan -esan zion O'Madden Burke jaunak onespenez, **euritakoaren** gainean bermaturik. Irene Aldasoro

Angie atarira jaitsi zenean epelki agurtu zuten elkar eta, euria zela eta, besotik harturik joan ziren **euritakoaren** azpian bi soinek elkar ukituz. Iñaki Zabaleta

Lasterka igarotzen ziren beren **euritakoen** pean makurturik edo zakuz estalirik. Josu Zabaleta

Autoa tabernaren sarrera ondoan aparkatu eta barrura jo zuten lasterka, **euritakorik** gabe. Aitor Arana

Mundu errealean **euritakoak** eguzkitako bihur daitezke, eta eguzkitakoak euritako. Joan Mari Irigoien

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zelaiaren ertzean, **euritako** handi baten azpian pilatu ziren. Iñaki Mendiguren

Ibiltokiko hesiaren aitzinean tente, kartierreko zaintzale bat, **euritako** handi batek estalirik, haize eta erauntsiaren erasoaldietatik ezin babestuz, eni so. Filipe Bidart

Harry konturatu zen Hagriden **euritako** arrosa loreduna etxolaren atzeko hormaren kontra zegoela. Iñaki Mendiguren

Neska, **euritako** hori bat eskuetan zuela, autoaren ondoan zutik agertu zenean, [...]. Aitor Arana

Metro-geltoki inguruan oro zen **euritako** beltz **euritako** koadrodun **euritako** gorri-berde **euritako** zahar. Lutxo Egia

Harryk **euritako** beltz zimurtu baten antza hartu zion. Iñaki Mendiguren

Bere burua **euritako** txiki batez estaltzen zuen bitartean, aterki handiaz Amaia euritatik babestu zuen etxezainak autotik ateratzen zen bitartean. Aitor Arana

Diseinu italiarrez eginiko oso **euritako** garesti bat. Joxemari Iturralde

Jendea bizkor igarotzen zen ezker-eskuin, **euritako** blaituetan bilduta. Alberto Ladron Arana

Hantxe ziren Txinako burko lakatu beltzak, paperezko **euritakoak**, banbuz egindako kaiola zuriak, estalkiaren barruan argi txiki bat zutenak. Javi Cillero

3 (hitz elkartuetan)

Irratian iragarrarazi zuen Araujo Lda. enpresak **euritako** sorta txiki bat jaso berri zuela eta Largo das Salinasen kokaturiko bere gordailuetan zeuzkatela herriko merkatariek. Bego Montorio

Halako euri eroak justifikatzen zituzten **euritako** mordo hura inportatzeagatik. Bego Montorio

4 irud/hed

Beste eragile sozialekin ari gara, Nafarroako Gobernuaren **euritakoaren** azpian ez gaudenok baztertuta gaudelako. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste euritako (3); **edo euritakoak** (3); **eta euritakoak** (3); **euritako bat** (4); **euritako handi** (4); **euritako handi baten** (3); **euritakoa eskuan** (3); **euritakoa zabaldu** (3); **euritakoaren azpian** (4); **euritakorik gabe** (3)

---

euritakodun *izond* eurikakoa duena.

Ikasle heldu **euritakodunak**, deus ezkutatzen ez niola ikusita, zertxobait jatera gonbidatu ninduen bere etxera. Fernando Rey

A, ez dago esateko askorik, andre **euritakodun** ezinago atsegin hori. Fernando Rey

Hainbeste ikusleren artean, emakume hura izan zen nire emanaldia estimatu zuen bakarra: andre gizen eta txiki **euritakoduna**, bakarra bera. Fernando Rey

---

euritakope *iz* euritako zabalduaren azpiko aldea.

Semaforoan, **euritakope** banatan, Joseba eta Gregory gelditu egin ziren. Iñaki Zabaleta

Ez, nahiago izan nuen kafeteraren ziztua entzun arte leihora hurreratu, eta handik jendea **euritakopean** ibiltzen ikustea. Patxi Zubizarreta

---

euritartu, euritar(tu), euritartzen da *ad* euritar bihurtu.

Lau egunotan denok **euritartu** gara eta Itsasondo gazte herri, gazte herri askea bilakatzea lortu dugu. Berria - Euskal Herria

---

eurite **1** *iz* euri jasa handia. ik **eurialdi**.

Uholde eta **eurite**, dozenatik gora izan dira azken mende honetan seinalatzekoak. Pello Zabala

Salamancan errogatibak egin zituzten behin eta berriz, **eurite** haiek gelditzeko eskatuz. Pello Zabala

Honela ibaia, **euriteek** uhertua, dikeen kontra indar izugarriz oldartzen da. Xabier Amuriza

1619an, adibidez, Ourensen, 40 eguneko **euriteen** ondoren, uzta granorik batere gabe dena zopa eginda galdu zen. Pello Zabala

Gure istorioa **euriteen** sasoiaren ondoren ihintzak loreak oro zuriz jantziak zituen goizalde hozkirrian hasten da. Xabier Mendiguren Elizegi

Gutxienez hamabost pertsona hil dira herrialdean **euriteen** ondorioz. Berria - Mundua

1916an, Annan, Valentzia aldean, 352 litroko **euritea** egun bakar batean. Pello Zabala

1582a urte guztiz makurra izan zen, maiatzaren 20tik aurrera eta azkenaldera arte, sekulako **euriteak** bota zituelako. Pello Zabala

Azken asteotako **euriteek** eragindako luiziek hondamendia eragin dute Kolonbian. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Urte berean, irailaren 23tik 24rako gauean, Malaga alderdia suntsituta utzi zuen **eurite** kaltegarri handi batek: 600etik gora lagun izan ziren ito eta uholdeak eramandakoak. Pello Zabala

Zein da, bada, klima tropikala? Urte osoan tenperatura altuekin batera, **eurite** mardulak ia egunero dituena. Pello Zabala

1784an, maiatzak 24 zituenean, Salamanca aldean, elurte eta **eurite** itzelak gertatu ziren. Pello Zabala

-1998an, Badajoz aldean **eurite** itxuragabekoak: Fregenal de la Sierran, 60 litro 3 ordutan. Pello Zabala

Marka guztiak hautsi zituen montzoi enbata 1861ean gertatu zen: Cherrapungin, Indian, udako **euriteen** aldian, 22.000 litro bota zituen euritan. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Igelen korroka entzun zuen; kilkerrak; **eurite** sasoiko gau geldia. Juan Garzia

· Horrek ere, baina, badu hegal zikin bat, montzoi **euriteak** eraginda. Gotzon Garate

4 (hitz elkartuetan, irud/hed)

Bigarrena ez duzu entzun, baina bai ondotik etorri bala **euritea**, berunezko ekaitza. Xabier Montoia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elurte eta eurite (3); **eta eurite** (8); **eta euriteak** (5); **eta euriteek** (5); **eurite eta** (7); **eurite gaitza** (3); **eurite handi** (3); **eurite handiak** (4); **euritea izan** (3); **euritearen ondorioz** (3); **euriteek eragindako** (8); **euriteek hainbat** (3); **euriteen ondorioz** (10); **ikaragarriko euritea** (3); **zuen eurite** (3)

---

euritmia *iz* armonia, eskuarki higidurari edo proportzioei dagokienez.

Honela diseinatutako eta egindako arkitektura batek **euritmia** izango du, berez objektiboa den nolakotasuna, baina aldi berean subjektiboki ere antzematen dena. Santiago Iruretagoiena

---

euritsu **1** *izond* euri asko egiten duena.

Gau **euritsua**, negukoa ia. Koro Navarro

Ontzia Itsaso Handian sartu zen, Mendebalderantz, azkenean, gau **euritsu** batean, Frodok airean lurrin bat sumatu eta uren gainetik iritsitako kantak entzun zituen arte. Agustin Otsoa

Denak zuen kolore grisa goiz **euritsu** hartan, dena zen zailtasuna, denak ziren patuak itxitako bideak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jeneralak kupeldegian edo basoan ematen zituen goizak, edo bestela amuarrain-errekara hurbiltzen zen egunero, are neguko goiz **euritsu** eta hotzetan. Xabier Olarra

Ehunka negu arrats **euritsu** beharko ziren paper pila handi haiek ongi miatzeko. Joxan Elosegi

Milizien burua, Ramon Azkue, larunbat **euritsu** batean fusilatu zuten beste hamasei lagunekin. Koldo Izagirre

Egun **euritsu** bat zela, eta haizeak ere gogor astindu zituela hiriko tamarizak eta platanondoak. Karlos Linazasoro

Negu **euritsu** baten ondoko maiatz-hilean gaude, eta ikusgarria da lurrak dakarren gorantza-nahia. Pako Aristi

Martxo haizetsu, apiril **euritsu**, maiatza gero eguzkitsu. Pello Zabala

1993an, Madrilen jasotako euri kopuru 193 litrotakoak, mende horretako hilabeterik **euritsuena** seinalatu zuen urriko hilabetea. Pello Zabala

Aurreko astean ez bezala, astelehen buruzuri **euritsu** sortu berrixean aldaketa fisikoak agertu ziren berriz ere Brown jaunarengan. Karlos Linazasoro

Gordelekutzat hartu zituen ilunpeak, etxola gisa bere inguruan hodei-laino **euritsuak**. Elizen arteko biblia

Arratsalde grisa izan zen hileta-egun hartakoa, oso **euritsua**, erabat donostiarra. Iban Zaldua

Udazkena bereziki **euritsua** izan zen inguruan eta urtegiko teknikariak kezkatzen hasi ziren. Berria - Euskal Herria

Oso eguraldi txarra eta **euritsua** ari da egiten, berogailuak usain txarra botatzen du, eta janaria astuna gertatzen zaigu denoi. Josu Zabaleta

Egun horietako denbora **euritsuen** ondotik Azkainetik San Iñazio-rat doan bidea hetsirik dugu lur peza bat biderat leherturikNeguko igande-arratsalde hotz eta **euritsu** hartan. Herria

Autoko leihatilatik begiratzen dio nexkak paisaia **euritsuari**. Lourdes Oñederra

Michael Richek arazorik gabe eutsi zion lidergoari etapa **euritsuan**. Berria - Kirola

Emakumea behatz-puntetan leihora hurbildu eta zutik geratu zen kale gris **euritsuetara** eta pareko harrizko etxe zahar eta ilunetara begira. Lopez de Arana

Iparralde **euritsuan** gutxitan ikusi zuen irudimena eta argitasuna zerion Manueli Mantxako lautada beroetan. Urtzi Urrutikoeetxea

2 irud/hed

Arbel ezabatu berri batean geratu ohi den klera-orban formarik gabea ematen zion kolore **euritsuak** paisajeari. Anjel Lertxundi

Haietako batean funtsa gertakarien zerrendatze soila egitea zen, errealitate gris, **euritsu** eta zekenaren arrastoei segika, paisaia zuhur eta hilduratua izanik zerumugan. Fernando Rey

Hala ere, oroitzapen lauso eta **euritsu** horretatik tiraka hasi nahi dut, haren inguruabarrak osatzeko, edo asmatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Agur txokoari, agur bolada batez gu-eta-gutarrei, agur, agur zuri ere, agur koadrilari eta Parte Zaharreko poteo **euritsuei**. Lourdes Oñederra

3 (adizlagun gisa)

Goiza heldu da, **euritsu** eta hotz. Sonia Gonzalez

Bazetorren eguna, ilun, gris, **euritsu**, hotz, tristurak eta ezbeharrak ekartzen dizkiguten egun horietako bat. Josu Zabaleta

Eguraldiak **euritsu** irauten zuenez Eskualdera gaua heldu aurretik iritsi nahi zuten. Agustin Otsoa

Goiza heldu da, **euritsu** eta hotz. Sonia Gonzalez

Negualdi osoa joan ohi dela **euritsu**. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrats euritsu (3); **arratsalde euritsu** (5); **denbora euritsua** (3); **egun euritsu** (11); **egun euritsu batean** (3); **egun euritsua** (3); **egun euritsuetan** (4); **eguraldi euritsua** (3); **eta euritsu** (6); **eta euritsua** (7); **euritsu bat** (7); **euritsu bat zen** (4); **euritsu batean** (14); **euritsu baten** (3); **euritsu eta** (12); **euritsu hartan** (5); **euritsu honetan** (4); **euritsu portatzen** (3); **euritsua dela** (3); **euritsua eta** (3); **euritsua izan** (7); **gau euritsu** (3); **gau euritsua** (3); **goiz euritsu** (8); **goiz euritsu hartan** (3); **hilabeterik euritsuena** (4); **oso euritsua** (3)

---

euritu, euri(tu), euritzen **1** da/du *ad* euri bihurtu.

Konplexuek labakitu neskari, hedoiak **euritzen** ziren uneak amodiozko lantzer-izpi iruditzen zitzaizkion. Itxaro Borda

Bigarren maileko finalarentzat aldiz **euriturik**, oraino jokatzekoa da kaseta hau egitean. Herria

2 (era burutua izenondo gisa)

Belarrari oratuz igaiten ziren bidezidorreraino, larru-azala oilobixar, gorputz osoa leiho **eurituen** antzera pikorreztatua. Koldo Izagirre

---

euritxo *iz adkor* euri xehea.

Hator, **euritxo** polit hori, hator. Juan Garzia

· Eta bakoitzari bere izena ematen zioten: Zangolohi, Hongkong, Txoriurdin, Peruloti, Alargunbeltz, **Euritxo**... Joseba Sarrionandia

---

eurixka *iz adkor* euri xehea.

Mezatik ateratu girenean, arras aro muttina zen, **eurixka** ari. Herria

Aroa ez baitezpada alde, **eurixka** baitzen. Herria

Ligaren Astea dugu hau, batean **eurixka** eta bestean ateri. Luzeko partida ezin joka Hazparnen eta esku huskakoak bai, berant aire batekin ilun nabarrean. Herria

Nazkatu bai, nazka ninteke nahi dudan guztia **eurixka** motel temoso segidoko honekin, euri-zirina ttontto mantso, edo tarteka bixi-bixi botatzen duenarekin. Pello Zabala

Oixtiko **eurixkak** eman kexu alegiazkoa aspaldian airatua zait. Piarres Aintziart

---

eurixkatsu *izond* eurixka egiten duena.

Egun hits, **eurixkatsu** eta umi hortan, ez da trinketa xukatu batere eta uko egin behar izan dute xapelgoko bi partideri aroaren kontra ez baita deus egiterik. Herria

Beherapenean gaude, deus gaixtorik gabe aro **eurixkatsua**, aste undarrari iguzkitsu, fresko aire batekin. Herria

---

euriztatu, eurizta(tu) euriztatzen du *ad* euriz busti.

Jainkoen numena eta egoitza lasaiak agertzen dira, ez haizeek astintzen, ez hodeiek **euriztatzen**, ez hotz minak gogortutako elurraren jauskera zuriak bortxatzen ez dituenak, baizik eter beti oskarbiak estaltzen eta argi ugariko isuriz irriarazten. Xabier Amuriza

---

euro *iz* Europar Batasuneko dirua. *(ikus beheko konbinatorian* euro *hitzaren agerraldi maizkoenak).*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

bat euro (89); **bat euro gehiago** (9); **bi euro** (13); **bi milioi euro** (30); **bost milioi euro** (16); **ehun euro** (13); **ehun mila euro** (11); **erdi euro** (11); **eta erdi euro** (8); **eta euro** (20)

euro artean (43); **euro arteko** (59); **euro arteko isuna** (17); **euro artekoa** (23); **euro artekoak** (18); **euro artekoak izango** (8); **euro atera** (8); **euro aurreztea** (9); **euro aurreztu** (13); **euro aurreztuko** (12); **euro baino** (79); **euro baino ez** (10); **euro baino gehiago** (37); **euro balio** (80); **euro balio ditu** (13); **euro balio du** (29); **euro balio zuen** (14); **euro balioko** (21); **euro banatu** (15); **euro banatuko** (32); **euro banatuko ditu** (17); **euro banatuko dituzte** (10); **euro bat** (74); **euro bateko** (13); **euro behar** (36); **euro behar dira** (8); **euro beharko** (21); **euro bideratu** (36); **euro bideratu ditu** (10); **euro bideratuko** (54); **euro bideratuko dira** (9); **euro bideratuko ditu** (27); **euro bideratuko dituzte** (10); **euro bideratzen** (8); **euro bildu** (27); **euro bitartean** (20); **euro bitarteko** (15); **euro bitartekoak** (8); **euro dira** (19); **euro diru** (9); **euro edo** (13); **euro ekarri** (14); **euro ekartzen** (11); **euro eman** (56); **euro eman behar** (8); **euro eman ditu** (11); **euro emango** (41); **euro emango ditu** (10); **euro emango dizkio** (12); **euro ematea** (8); **euro ematen** (9); **euro erabili** (12); **euro erabiliko** (21); **euro erabiliko ditu** (9); **euro ere** (10); **euro eskaini** (30); **euro eskaini ditu** (14); **euro eskatu**

(22); euro eskatzen (20); euro eskuratu (15); euro eskuratuko (14); euro eskuratuko ditu (9); euro eskuratzen (8); euro eta (85); euro ez (10); euro ezarriko (9); euro fakturatu (27); euro fakturatu zituen (17); euro galdu (19); euro garbi (24); euro garbi irabazi (13); euro gastatu (34); euro gastatuko (30); euro gastatuko ditu (12); euro gastatzen (8); euro gehiago (131); euro gehiago ordaindu (11); euro gordin (15); euro gosta (11); euro gostako (32); euro gostako da (23); euro gutxiago (45); euro guztira (10); euro hartuko (8); euro haurrentzat (14); euro helduentzat (17); euro hilean (11); euro horiek (15); euro inbertitu (28); euro inbertitu ditu (9); euro inbertituko (40); euro inbertituko ditu (22); euro inbertituko dituzte (8); euro indartsuak (10); euro inguru (172); euro inguru balio (11); euro inguru ordaindu (10); euro inguruko (43); euro ingurukoa (14); euro irabazi (113); euro irabazi ditu (37); euro irabazi zituen (56); euro irabaziko (15); euro irabaztea (11); euro irabazten (11); euro itzuli (20); euro izan (15); euro izango (16); euro jarri (28); euro jarriko (22); euro jarriko ditu (20); euro jaso (46); euro jaso ditu (10); euro jaso zituen (13); euro jasoko (77); euro jasoko ditu (46); euro jasoko dituzte (21); euro jasotzen (21); euro jasotzen ditu (8); euro jokatuko (9); euro kobratzen (11); euro kostako (15); euro lortu (9); euro ordaindu (173); euro ordaindu behar (45); euro ordaindu beharko (69); euro ordaindu ditu (10); euro ordaindu dizkio (12); euro ordainduko (46); euro ordainduko ditu (13); euro ordainduko dizkio (16); euro ordainduta (22); euro ordaintzeko (11); euro ordaintzen (28); euro ordaintzera (21); euro pagatu (15); euro pagatu beharko (8); euro pasa (12); euro pasatxo (13); euro salerosi (13); euro salerosi ziren (10); euro urtean (13); euro xahutu (13); euro zor (14)

euskal euro (9); gorostiaga euro (10); hamar euro (11); hiru euro (9); hiru milioi euro (39); hogei euro (8); koldo gorostiaga euro (10); lamassoure euro (9); lau milioi euro (21); mila euro (57); mila milioi euro (19); miliar euro (26); milio euro (9); milioi bat euro (65); milioi euro (1671); milioi euro artean (8); milioi euro arteko (10); milioi euro aurreztu (9); milioi euro aurreztuko (10); milioi euro baino (30); milioi euro balio (11); milioi euro banatu (8); milioi euro banatuko (13); milioi euro behar (14); milioi euro beharko (13); milioi euro biderato (26); milioi euro bideratuko (33); milioi euro bildu (10); milioi euro eman (24); milioi euro emango (16); milioi euro erabili (8); milioi euro erabiliko (16); milioi euro eskaini (14); milioi euro fakturatu (25); milioi euro galdu (14); milioi euro garbi (19); milioi euro gastatu (20); milioi euro gastatuko (21); milioi euro gehiago (38); milioi euro gutxiago (13); milioi euro inbertitu (25); milioi euro inbertituko (38); milioi euro inguru (74); milioi euro inguruko (24); milioi euro irabazi (102); milioi euro irabaziko (8); milioi euro irabaztea (11); milioi euro itzuli (16); milioi euro izango (8); milioi euro jarri (15); milioi euro jarriko (12); milioi euro jaso (22); milioi euro jasoko (15); milioi euro ordaindu (43); milioi euro ordainduko (30); milioi euro pasa (8); milioi euro salerosi (12); milioi euro zor (11); miliun euro (36); sei euro (8); sei milioi euro (19); zortzi milioi euro (10)

donostia euroaren (8); eta euroa (16); eta euroak (8); eta euroaren (17); euroa erabiltzen (8); euroa eta (8); euroak ez (8); euroan saldu (10); euroaren balioa (9); euroaren eremuan (14); euroaren eremuko (41); euroaren eta (11); milioi euroak (48); milioi euroan (17); zuen euroaren (8)

bat euroko (24); bat euroko aurrekontua (10); bi milioi euroko (18); euroko aurrekontu (10); euroko aurrekontua (146); euroko aurrekontua du (33); euroko aurrekontua izan (10); euroko aurrekontua izango (29); euroko aurrekontuarekin (20); euroko balioa (25); euroko bermea (152); euroko bermea ezarri (21); euroko bermea jarri (13); euroko bermea ordaindu (35); euroko bermea ordainduta (38); euroko bermepean (10); euroko buxeta (11); euroko defizita (14); euroko dibidendua (10); euroko diru (114); euroko diru laguntza (63); euroko diru sarrerak (11); euroko dirulaguntza (10); euroko dirutza (11); euroko eskaintza (12); euroko etete (16); euroko etete klausula (12); euroko fakturazioa (14); euroko galerak (21); euroko galerak izan (10); euroko gastua (14); euroko gastuak (8); euroko hipoteka (8); euroko igoera (9); euroko inbertsioa (77); euroko inbertsioa egin (25); euroko inbertsioa egingo (11); euroko inbertsioak (11); euroko irabazi (16); euroko irabazi garbiak (10); euroko irabaziak (33); euroko irabaziak izan (15); euroko iruzurra (13); euroko isun (8); euroko isuna (185); euroko isuna eskatu (15); euroko isuna eta (11); euroko isuna ezarri (33); euroko isuna jarri (37); euroko isuna ordaindu (20); euroko isunak (9); euroko kalte (55); euroko kalte ordaina (44); euroko kontratua (9); euroko kopurua (8); euroko kostua (42); euroko kostua izango (16); euroko laguntza (63); euroko laguntzak (9); euroko mailegua (11); euroko mozkin (8); euroko negozio (12); euroko partida (8); euroko salmentak (10); euroko saria (61); euroko saria jasoko (13); euroko sarrerak (10); euroko soldata (31); euroko superabita (8); euroko zigorra (18); euroko zorra (29); eurokoa da (109); eurokoa dela (10); eurokoa izan (62); eurokoa izan da (15); eurokoa izan zen (34); eurokoa izanen (19); eurokoa izanen da (18); eurokoa izango (40); eurokoa izango da (32); eurokoa zen (17); eurokoak dira (8); eurokoak izan (22); eurokoak izan ziren (15); eurokoak izango (9); eurokoak izango dira (8); hiru milioi euroko (14); mila euroko (22); milioi bat euroko (21); milioi euroko (810); milioi euroko aurrekontua (83); milioi euroko aurrekontuarekin (9); milioi euroko balioa (12); milioi euroko bermea (14); milioi euroko buxeta (9); milioi euroko defizita (12); milioi euroko diru (39); milioi euroko eskaintza (9); milioi euroko etete (15); milioi euroko fakturazioa (14); milioi euroko galerak (18); milioi euroko gastua (9); milioi euroko inbertsioa (66); milioi euroko inbertsioak (11); milioi euroko irabazi (14); milioi euroko irabaziak (27); milioi euroko isuna (21); milioi euroko kontratua (9); milioi euroko kostua (30); milioi euroko laguntza (11); milioi euroko laguntzak (8); milioi euroko negozio (12); milioi euroko salmentak (10); milioi euroko zorra (18); milioi eurokoa (150); milioi eurokoa da (35); milioi eurokoa izan (37); milioi eurokoa izango (15); milioi eurokoa zen (10); milioi eurokoak (35); milioi eurokoak izan (18); milioika euroko (10); sei milioi euroko (15)

eurora igo (15); eurora iritsi (24); eurora iritsi zen (9); euroren akzioak (12); euroren gastua (8); euroren inbertsioak (8); euroren salerosketa (32); euroren salerosketa izan (8); euroren truke (97); euroren trukean (9); eurotan da (19); eurotan erosi (18); eurotan finkatua (10); eurotan helduentzat (8); eurotan izanen (18); eurotan izanen da (13); eurotan saldu (21); eurotan salduko (11); eurotan salgai (26); eurotan salgai da (10); eurotik gora (48); eurotik gorako (26); euroz goiti (9); hamar eurotan (8); mila euroren (8); milioi eurora (55); milioi eurora iritsi (21); milioi euroraino (13); milioi eurorekin (10); milioi euroren (162); milioi euroren akzioak (11); milioi euroren inbertsioak (8); milioi euroren salerosketa (32); milioi euroren truke (47); milioi eurotan (64); milioi eurotan erosi (9); milioi eurotik (64); milioi eurotik gora (28); milioi eurotik gorako (16); miliun euroren (8)

---

euroagindu *(orobat **euragindu** g. er.) iz* europar batasunaren agindua.

Euroagindua oso arma eraginkorra da aurkari politikoak ezeztatzeko. Berria - Euskal Herria

Jon Garmendia eta Ekain Rodriguezen **euroagindua** onartu du auzitegiak. Berria - Euskal Herria

Espainiak eskatutako **euroagindua** onartu zuenez, gero Espainiara estraditatuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Monseko Instrukzio Ganberak Espainiak Belgikara igorritako **euroagindua** betetzeari uko egin zionean argudiatu zuenez, «badira arrazoiak Espainian terroristei ez zaizkiela oinarrizko eskubideak errespetatzen pentsatzeko». Berria - Euskal Herria

Yves Matxikote, Amaia Rekarte eta Haritza Galarraga atxilotu dituzte, **euroagindua** baliatuta. Berria - Euskal Herria

Bruselako Auzitegiaren ustez, Espainiak igorritako **euroagindua** ezin da bikote bizkaitarraren kasuan ezarri, Madrilen eskaria **euroagindua** arautzen duen legea onartu aurrekoa delako. Berria - Euskal Herria

Prokuradorea Mikel Albisu ETA ustezko buruzagiaren kontrako **euroaginduaren** aurka agertu da. Berria - Euskal Herria

Lopezi dagokionez, haren aurkako **euroagindua** «arrazoi politikoetan» oinarritua dagoela iritzi dio Delvauxek. Berria - Euskal Herria

Paueko auzitegiak hiru gazteen kontrako **euroagindua** atzera bota zuen. Berria - Euskal Herria

Denek beren lekukotasuna agertu dute, **euroagindu** delakoa salatuz besteak beste. Herria

HZk **euroagindua** salatzeko deia egin zien sindikatu, gizarte eragile eta alderdi politiko guziei. Berria - Euskal Herria

Segikoen kontrako **euroagindua** ez onartzea erabaki du Frantziak. Berria - Euskal Herria

Frantziako Estatuak **euroaginduari** segidarik ez ematea erabaki zezakeen. Berria - Euskal Herria

Elkarretaratzeak **euroaginduaren** aurka. Berria - Euskal Herria

Jon Lopez, martxoaren 31n atxilotutakoa, ez Espainiaratzea erabaki du Begikako epaitegi batek, Espainiaren **euroaginduari** uko eginez. Berria - Euskal Herria

Euroaginduaren kontrako oihuak nabarmendu ziren, independentziaren eta presoen aldeko aldarriekin batera. Berria - Euskal Herria

Larunbatean, duintasunez bizitzeko eskubideaz ariko dira, laborari, ahalmen urriko haur edo **euroaginduaren** pean diren Segiko hiru gazteen gaiak jorratuz. Berria - Kultura

2

Paueko Helegite Auzitegiak onartu zuen atzo goizean Ekain Rodriguez eta Jon Garmendiaren kontrako **euroagindu** eskaera. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurkako euroagindua (14); **euroagindua ez** (11); **euroagindua onartu** (8); **kontrako euroagindua** (14)

---

euroasiar *izond* Europako eta Asiakoa, Europari eta Asiari dagokiona.

Puntu horretantxe jarri zuen arriskuan gure bataviar atseginak, ohartu gabe bada ere, arraza **euroasiarraren** etorkizuna: zeruan baloi gidatu bat ikusi zuelarik, lasterka hurbildu zen kristalezko leihate handira. Joxan Elosegi

---

Euroazoka *iz* Europari dagokion azoka.

Heldu den igandean **Euroazoka** edo Euromerkatua iraganen da Santiagoko zubian. Herria

---

eurobaikortasun *iz* Europari dagokion baikortasuna.

Euskal Herrian **eurobaikortasunak** indar handia du. Berria - Euskal Herria

---

eurobanku *iz* Europari dagokion bankua.

Inongo araudiren mende ez egotea zen merkatu horiek eskaintzen zuten pizgarria: ez Federal Reserve Board Estatu Batuetako banku zentralaren mende -ez baitzuen eraginik estatubatuar lurraldetik kanpoko eragiketetan-, ez **eurobankuak** zeuden herrialdeetako banku zentralen mende. Koro Navarro

---

Eurobarometro *iz* Europar Komisioak europar biztanleen iritzia ezagutzeko periodikoki egiten dituen inkesten multzoa.

Eurobarometroaren zenbakiek diote EBko herritarren %42k ez dutela sekula irakurtzen; EAEn, aldiz, %41ek aitortu dute irakurketarako astirik edo gogorik eza. Berria - Kultura

Eurobarometroaren arabera, zientziaz oro har eta bereziki bioteknologiaz gehien espero duten Europar Batasuneko herrialdeen artean agertzen da Espainiako estatua. Berria - Gaiak

---

eurobidaia *iz* Europan zeharko bidaia.

Portugal, Frantzia eta Grezia da uda honetan modan dagoen **eurobidaia**. Berria - Kirola

---

eurobligazio *iz*

Nazioarteko obligazio klasikoak, atzerritar mailegu-hartzaile baten kontura jaulkiak, herrialde mailegu-emailearen finantza-lekuan eta diruan; **eurobligazioak**, jaulkitzen diren lekuaz bestelako diruan emanak; nazioarteko akzioak. Koro Navarro

---

eurodeputatu ik **eurodiputatu**.

---

eurodiputatu *(orobat **eurodeputatu** g.er., **euro diputatu** g.er., eta **euro deputatu** g.er.)* **1** *iz* Europar Parlamentuko diputatua.

Justizia sozialaren kontzeptua oso ezberdina delako Izarreko langile, **eurodiputatu**, preso, zine zuzendari, futbolari, sindikatu buruzagi, marine, edo kazetari batentzat. Berria - Kultura

Zenbaitek diote **eurodiputatuek** herrialdeetako diputatuek baino botere handiagoa dutela, azken horiek EBren araudiak bete behar dituztelako. Berria - Mundua

Eskualde zabal horretatik hamar **eurodiputatu** hautatuko dituzte ekaineko hauteskundeetan. Berria - Euskal Herria

Durao Barrosoren batzordearen alde bozkatu zuten 449 **eurodiputatuk**, 149k aurka eta 82k zuri. Berria - Mundua

ALDE taldea, 88 **eurodiputaturekin**, Parlamentuko hirugarren taldea da. Berria - Euskal Herria

Europako Batasuneko hiru **eurodiputatuk** bonba-gutun bana jaso zuten atzo. Berria - Mundua

24 **eurodiputatu**, berriz, abstenitu egin ziren bozketan. Berria - Gaiak

Eurodiputatu bat galdu du Galeuscak, PPren mesedetan. Berria - Euskal Herria

Europako Legebiltzarreko osoko bilkuratik ateratzean hitz egin dugu telefonoz Berdeen **eurodiputatu** Gerard Onesta okzitaniarrarekin. Berria - Harian

Daniel Varela PPko **eurodiputatuak** irailaren 23an egindako galderaren erantzuna izan zen atzoko azalpena. Berria - Ekonomia

Josu Ortuondo EAJko **eurodiputatuak** batzordea utzi zuen, kritikei erantzuten utzi ez ziotelako. Berria - Euskal Herria

Hala nabarmendu dute Bernat Joan Herrien Europa koalizioko ERCko **eurodiputatuak** eta Mikel Irujo Koalizioko EAko ordezkariak. Berria - Euskal Herria

Hauteskundeak hurbiltzen ari zauzkigu: martxoan eskualde edo lurraldekoak, Akitaniakoak guretzat, denbora berean ere kontseilu orokorrekoak -hamar bat Iparralde honetan-, ekainean **Eurodiputatuentzat**. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Txostenean, hondamendia gertatu zenean hasitako lanengatik kontu hartu dio Espainiako Gobernuari **eurodiputatu** liberalak. Berria - Gaiak

Eurodiputatu sozialisten esanetan, EBk Kubarekiko duen jokabide politikoa «ezegokia» da eta nahi ziren emaitzak eman ez dituela ikusi da. Berria - Mundua

Koldo Gorostiaga EHko **eurodiputatu** ohiaren iritziz ez da balentria atsegina. Berria - Harian

Daniel Cohn Bendit **eurodiputatu** berdeak erran du Ipar Irlandako prozesuak Euskal Herrirako bidea erakutsi duela. Berria - Harian

Eluned Morgan **eurodiputatu** galestarrak oraindik ere erantzun gabe dagoen beste galdera bat igorri zuen iragan martxoaren 10ean Europako Batzordera. Berria - Mundua

Sinn Feinek lehen **eurodiputatua** lor dezake. Berria - Mundua

Bosgarren **eurodiputatua** lortzea du helburu EB-IUk. Berria - Euskal Herria

Bozketa sekretupean egiteko arriskuez ohartarazi zuten ezkerreko **eurodiputatuek** herritarrek euren boza ezagutzeko eskubidea dutela argudiatuz. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan)

Auzapez kargua ez zen bateragarria **eurodiputatu** karguarekin. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi eurodiputatu (3); **du eurodiputatu** (3); **eajko eurodiputatuak** (4); **ehko eurodiputatu** (4); **eta eurodiputatu** (3); **eta eurodiputatuak** (3); **eurodiputatu bat** (3); **eurodiputatu bernat** (3); **eurodiputatu eta** (5); **eurodiputatu galestarrak** (3); **eurodiputatu izango** (3); **eurodiputatu liberalak** (3); **eurodiputatu ohia** (4); **eurodiputatu ohiak** (4); **eurodiputatu ohiaren** (3); **eurodiputatua da** (3); **eurodiputatua eta** (6); **eurodiputatuak eta** (4); **gorostiaga ehko eurodiputatu** (4); **gorostiaga eurodiputatua** (3); **gorostiaga eurodiputatuak** (5); **hainbat eurodiputatuk** (4); **hamabi eurodiputatuk** (6); **hiru eurodiputatu** (3); **koldo gorostiaga eurodiputatua** (3); **koldo gorostiaga eurodiputatuak** (5); **ortuondo eajko eurodiputatuak** (4); **ppko eurodiputatuak** (4)

---

eurodolar *iz* euroaren eta dolarraren arteko dibisa mota.

Godo inozoek eramandako **eurodolarrei** esker, polizia barra-barra eta poliki-poliki kontatzen joango natzaizkizuen kontuak. Berria - Kirola

Eurodolarren merkatuaren sorrera. Koro Navarro

Nazioarteko mekanismo honek, 1960ko hamarralditik aurrera, **eurodolarren** merkatuaren konkurrentzia jasan behar izan zuen. Koro Navarro

Godo inozoek eramandako **eurodolarrei** esker. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eurodolarren merkatuaren (3)

---

eurodun *iz* euroak dituena.

Izan, **eurodunen** etxea da. Joxerra Garzia

---

euroerregio *iz* europar erregioa.

EAEren eta Nafarroaren arteko harremanak sendotzea eta «erakunde komunak» sortzea proposatzen du eta, Iparraldeari buruz, «aurreneko urratsa» euskal departamenduaren sorrera litzatekeela, gero «mugaren bi aldeetako euskal erkidegoek **euroerregioa**» sortzera jotzeko. Berria - Euskal Herria

---

euroeskualde *(orobat **Euroeskualde**) iz* europar eskualdea.

Europa hegoaldean dagoen eremua litzateke **Euroeskualdea**. Berria - Mundua

Euroeskualdea eratzeko aurreneko testua sinatu dute agintariek. Berria - Mundua

Euroeskualdea sortuz Ipar eta Hego Euskal Herriko harremanak egituratzea proposatu du. Berria - Euskal Herria

Britainia Haundiko hego-mendebaldearekin, Galesekin-eta, **euroeskualde** bat osa genezake. Berria - Mundua

Euroeskualdea bultzatzea hitzartu dute Ibarretxek eta Laserrek. Berria - Euskal Herria

Herrialde Katalanak: Kataluniako Generalitateko presidente Pasqual Maragallek kultura eta historia kataluniarraren inguruko **euroeskualdearen** lehen bilkura deitu zuen urrirako. Berria - Harian

Hori guztia errazago bihurtuko da **Euroeskualdeen** eraikuntzarekin. Berria - Mundua

ERCko kide gisa duen asmoa Kataluniako iparra eta hegoa **Euroeskualde** handi batean biltzea dela esan du, berriari emaniko elkarrizketan. Berria - Mundua

Azkenaldian anitz aipatzen duen **«euroeskualde** konferentzia» osatzeko bidea ikusten du. Berria - Euskal Herria

Jean-Jacques Lasserrek gutuna idatzi die Juan Jose Ibarretxe, Alain Rousset eta Joxe Juan Gonzalez Txabarriri, **«euroeskualde** konfederazioaren aurreratzeko». Berria - Euskal Herria

Euskal **euroeskualdearen** etorkizunaz bereziki, eta Europan eskualdeak lortzen ari diren garrantziaz oro har mintzatu zen. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euroeskualde bat (3); **euroeskualde baten** (3); **euroeskualde konferentzia** (3); **euskal euroeskualdea** (3)

---

euroeszeptiko *izond/iz* euroeszeptizismoa duena.

Ez dut uste aldaketa nabarmena izango denik; agian, orain baino eskuin-muturreko ordezkari **euroeszeptiko** gehiago egongo dira Erresuma Batuan eta Polonian, baina gutxiengo txikia izango dira. Berria - Mundua

Martxotik hona parte hartzearen inguruko aurreikuspenak %60tik %23ra jaitsi dira, eta giro **euroeszeptiko** handia dago. Berria - Mundua

Euroeszeptikoak gero eta gehiago dira eskuin edo ezkerreko botoemaileen artean. Berria - Mundua

Zentro-eskuineko alderdiak, nazionalistak eta **euroeszeptikoak** nagusituko dira bihar arte egingo diren Europako Legebiltzarrerako bozetan. Berria - Mundua

Berdeek eta **euroeszeptikoek** aurkako botoa eman zioten Barrosori. Berria - Mundua

Erresuma Batuan, Danimarkan eta Suedian ere alderdi **euroeszeptikoen** igoera espero da. Berria - Mundua

Hautetsi **euroeszeptikoen** kopuruak gora egingo duela dirudi, batez ere maiatzean EBko kide berri bihurtu ziren Europa erdialde eta ekialdeko 10 estatuetan. Berria - Mundua

Jarrera europazale nabarmena duten Italiako eta Herbehereetako sozialistek, Toni Blairren alderdiko **euroeszeptikoekin** talka egiten dute talde berean. Berria - Mundua

---

euroeszeptizismo *iz* europar batasuna begi onez ikusten ez duen joera politikoa.

Gertakari horien argitara, Europan barrena **"euroeszeptizismoak"** indarra hartu zuen eta batasun prozesuan aurrera egiteko asmoa hoztu egin zen oso. Iñaki Heras

Danimarka: **Euroeszeptizismoaren** tradizioak esaterako, 2000an euroa errefusatu zuen segida izango duela uste da. Berria - Mundua

Erreferendumari nork bere erantzuna emango dio, estatu bakoitzean daukan egoeraren arabera, ez baita berdin, esate batera, Erresuma Batuko **euroeszeptizismo** giroan bozkatu edo hemen bozkatu. Berria - Euskal Herria

---

eurogune *(orobat **Eurogune**) iz* monetatzat euroa duen gunea.

Dow Jones ez zen Europa bezain ezkor esnatu, baina **Euroguneak** ez du ekonomia sendo eta hazkunde handiko baten itxurarik. Berria - Ekonomia

Gaur-gaurkoz ordea, enpresen nazioartekotze prozesuaren eta **eurogunearen** sorreraren ondorioz, adierazle makroekonomiko horrek ez du solaskide legez balio. Berria - Ekonomia

Lehen aldiz onartu zuen atzo Europako Banku Zentralak (EBZ) euro indartsuak eragin txarra duela **Eurogunearen** esportazioetan. Berria - Ekonomia

Guztira, 12,7 milioi pertsona daude lanik gabe **eurogunean** eta 19,4 milioi EBn. Berria - Ekonomia

Batzuek espero dute 2008an parekatzea EBko ekialde eta mendebaldeko estatuetako soldatak, **eurogunean** guztiz sartzean. Berria - Mundua

Petrolioaren garestitzearen eraginez, irailean %2,6ra iritsi zen inflazioa **Eurogunean**. Berria - Harian

Euroguneko konpainia handienak biltzen dituen Euro Stoxx indizea %2,6 jaitsi zen, %2,65 Frankfurteko Dax eta %2,60 Parisko Cac-40. Berria - Ekonomia

Edonola ere, **Euroguneko** Barne Produktu Gordina %0,3 besterik ez zen hazi 2005eko azken hiruhilekoan. Berria - Ekonomia

2002ko **euroguneko** langabezia tasa %8,6koa izan zen, eta EBkoa, aldiz, %7,9koa. Berria - Ekonomia

Jean Claude Trichet EBZ Europako Banku Zentraleko presidenteak petrolio ekoizleei leporatu die **euroguneko** inflazioaren igoera. Berria - Ekonomia

Defizitaz haratago, **Euroguneko** eta Europako Batasuneko hazkunde ekonomikoaren nondik norakoak laburbildu ditu EBk. Berria - Ekonomia

Sarkozyk proposatu du **Euroguneko** Finantza ministroen taldeak agintari sendoa behar duela. Berria - Ekonomia

Atzo, Erresuma Batuko hiriburuan gertatutakoa jakin eta **Euroguneko** 50 enpresa nagusiek kotizatzen duten Eurostoxx-50 indizea %4,47 galtzera iritsi zen. Berria - Harian

Eurogunerako, %1,7ko hazkunde mugatua aurreikusten du nazioarteko erakundeak, irailean iragarritakoa baino %0,1 gutxiago. Berria - Ekonomia

Fagor Etxetresnak-ek osagaien %50 **eurogunetik** kanpo erosi nahi ditu. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bai eurogunean (3); **da eurogunean** (5); **da euroguneko** (3); **du euroguneko** (4); **dute euroguneko** (3); **eta euroguneko** (9); **eurogunean eta** (5); **eurogunean sartzeko** (4); **euroguneko barne** (6); **euroguneko barne produktu** (6); **euroguneko batez** (3); **euroguneko bpg** (5); **euroguneko ekonomia** (25); **euroguneko ekonomiaren** (9); **euroguneko eta** (5); **euroguneko eta europako** (3); **euroguneko herrialde** (3); **euroguneko inflazioa** (11); **euroguneko inflazioaren** (3); **euroguneko interes** (6); **euroguneko interes tasak** (5); **euroguneko langabezia** (9); **euroguneko langabezia tasa** (6); **eurogunetik kanpo** (4); **eurogunetik kanpo erosi** (3); **zen eurogunean** (4)

---

eurohiri *iz* Europar Batasuneko zenbait estatuetako hiri hurbilen arteko akordioen bidez sorturiko hiria.

Donostia-Baiona **eurohiriak** 10 urte betetzen ditu urtarril huntan. Herria

Portua izatekotan, ez da bakarturik egin behar den ezer; izatekotan ere, **eurohiriaren** eskalako egituren arteko beste bat behar luke. Berria - Kultura

Hori zinezko **eurohiri** bihur dadin nahi dugu. Berria - Euskal Herria

Bederatzi azoka egin ziren 2005ean, **Eurohiriko** Haurren Azoka ere egin zen, 75.000 bisitari izan dituzten 82 ekitaldi egin ziren. Berria - Euskal Herria

Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko harreman lanetan, nahiz eta kontsortzioa eta **eurohiria** badiren, iruditzen zaizu bide handia egin dela? Berria - Euskal Herria

---

Euroitun *iz* Europar Batasuneko estatuen arteko ituna.

Lehen keinua Hizkuntza Gutxituen **Euroituna** sinatzea litzateke. Berria - Harian

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Espainiako Gobernuari presio egiteko eskatu die alderdi politikoei, **Euroituna** berrestean hartutako konpromisoak bete ditzan. Berria - Euskal Herria

Espainiako agintarien egitekoa **Euroituna** betetzen dela bermatzea den arren, lekuko agintarien bidez egiten bada nahikoa dela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria

Euskararen Legeak ezartzen dituen mugen jakitun, hari buruzko txosten monografikoa igorri dio Behatokiak Europako Kontseiluari, **Euroitunaren** kontrol batzordeak eskatuta. Berria - Euskal Herria

Nafarroan **Euroitunaren** zazpigarren artikulua betetzea galdegin du. Berria - Euskal Herria

Espainiako legeak ez direla **euroitunaren** kontrakoak. Berria - Euskal Herria

Pedro Pegenautek zuzentzen duen hizkuntza politika ez da **Euroitunak** zehazten dituen konpromisoak betetzen ari. Berria - Euskal Herria

Euskararen Legea bat dator, erabat, Europako Hizkuntz Gutxituen **Euroitunarekin** , herrialde demokratiko guztietan irizpide bera dagoelako: hizkuntz eskubidea ez dela oinarrizko eskubidea, eta ez dela norbanakoarena, baina talde batena. Berria - Euskal Herria

---

Eurokarta *iz* Europako eskualde hizkuntzen defentsa eta sustapenerako karta.

Erregio zein Gutxiengo Hizkuntzen **Eurokarta** Espainiako Estatuak euskararen kasuan nola aplikatu duen aztertu du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak eta ondorio argi batera heldu da: Madrilek ez du **Eurokarta** bete. Berria - Euskal Herria

Frantziak, ordea, ez du sinatu Hizkuntza Gutxituen **Eurokarta** . Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuak aurkeztu duen txostenean **Eurokarta** benetan betetzen ote den ez da aztertzen, soilik dio Espainiako legeak ez direla **Eurokartaren** kontrakoak. Berria - Euskal Herria

Eurokarta indarrean dagoela kontuan izanda, euskararen defentsarako erabili behar da. Berria - Euskal Herria

Behatokiko zuzendariak azaldu du **Eurokartaren** betetze maila aztertzen duen txostena aurkeztuko duela Europako Kontseiluan. Berria - Euskal Herria

Europako Kontseiluko adituek **Eurokartaren** ebaluazioa egiteko bilera egiteko garaia etorri denean, Espainiako Estatuaren ordezkariak dimisioa aurkeztu zuen. Berria - Euskal Herria

---

eurokeria *iz adkor*

Aldi hontan ere, jazkoan bezala, joanden urteko gertakariak marrazkiez azal ditzakezu (busheriak, garratz-on, sarkoziriak, **eurokeriak** ... eta keria abar luzea...) beste gai gisa har daiteke gertakarien hori. Herria

---

Eurokopa *iz* UEFAren Europar txapelketa.

Frantziak ez zituen kasualitatez irabazi 1998an eta 2000n Munduko Kopa eta **Eurokopa** . Berria - Kirola

Errugbia: **Eurokopa** jokatu da larunbatean Bordelen. Herria

Eurokopa bat, Ingalaterrakoa (1996), izan zen, hain zuzen, Lizarazuk jokatu zuen aurreneko txapelketa handia. Berria - Kirola

Ricardo Carlvaho atzelari portugaldarra **Eurokopa** bikaina egiten ari da. Berria - Kirola

Txekia **Eurokopako** talde ausartena izan da, erasoan gehien saiatu dena, eta horrek emaitza onak eman dizkio. Berria - Kirola

Wayne Rooney **Eurokopako** izarra bilakatzeko merituak pilatzen ari da partidaz partida. Berria - Kirola

Kanpora joaten zarenean, ligako, UEFAko edo **Eurokopako** partidak jokatzera, haiei begira egongo naiz, urrun zauzkadanean ere zugana itzultzeko. Joan Mari Irigoien

Portugalgo **Eurokopako** norgehiagoka ikusgarriena jokatu zuten herbeheretarrek eta txekiarrek. Berria - Kirola

Trebon hirian jaiotako erdilaria Txekiarekin ari den beteranoena da, gainera, eta Greziari irabaztea lortzen badute, **Eurokopako** finala selekzioarekin jokatzen duen 100.a izango da. Berria - Kirola

Eurokopako finalerdiek ere badute euren iragarpena. Berria - Kirola

Txekiak beti jokatu izan du ondo **Eurokopan** , baina Brucknerrek bi aurrelari hauek batera jarri zituenetik emaitza hobeak lortu ditu. Berria - Kirola

Errugbia: **Eurokopan** finalerdietara hupatu dira joan den astean hiru talde frantses. Herria

Txekiako selekzioaren sona Ingalaterrako **Eurokopan** berpiztu zen. Berria - Kirola

1996: **Eurokopan** txapeldunorde. Berria - Kirola

Trebonen jaiotako erdilaria, Smicer eta Nedvedekin batera, 96ko **Eurokopan** finalera iritsi zen taldeko bakarra da. Berria - Kirola

Iñaki Saez Espainiako hautatzaileak atzo eman zuen Portugalgo **Eurokopara** eramango dituen jokalarien zerrenda. Berria - Kirola

Itxaropentsu abiatu da Xabi Alonso Portugalgo **Eurokopara** . Berria - Kirola

Portugalgo **Eurokoparako** sailkatze fasean, Txekia izan zen txartela lortu zuen lehenengo selekzioa. Berria - Kirola

Bi jokalariek selekzioa utzi zuten **Eurokoparen** ondoren. Berria - Kirola

Orain **Eurokopatik** kanpo geratu ondoren berritze plana da Frantziak egin beharrekoa. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atezaina da eurokopako (3); **aurtengo eurokopan** (5); **baina eurokopa** (4); **da eurokopa** (9); **da eurokopako** (3); **du eurokopa** (6); **dugu eurokopa** (3); **eta eurokopa** (8); **eta eurokopan** (4); **eta eurokoparen** (3); **eurokopa bat** (6); **eurokopa batean** (3); **eurokopa eta** (5); **eurokopa hasi** (9); **eurokopa hasi aurretik** (7); **eurokopa hau** (5); **eurokopa honetako** (3); **eurokopa honetan** (8); **eurokopa irabazi** (9); **eurokopa irabazi zuen** (6); **eurokopa irabazteko** (8); **eurokopa jokatu** (6); **eurokopa jokatuko** (5); **eurokopa jokatzeko** (4); **eurokopa portugalen** (3); **eurokopako final** (3); **eurokopako finala** (3); **eurokopako lehen** (10); **eurokopako talde** (4); **eurokopan izango** (3); **eurokopan jokatuko** (3); **eurokoparako sailkapen** (3); **eurokoparen ondoren** (3); **eurokopatik kanpo** (7); **eurokopatik kanpo geratu** (3); **ingalaterrako eurokopan** (3); **lehen eurokopa** (4); **portugalgo eurokopa** (10); **portugalgo eurokopan** (10); **portugalgo eurokopara** (5)

---

eurokreditu *iz* nazioarteko eragiketa, fintzantza erakunde batek beste lurralde bateko pertsona, erakunde edo gobernu bati lurralde horretakoa ez den dibisa batean kreditu bat ematean datzana.

1970eko hamarraldiko **eurokredituen** ondoren, beraz, zuzeneko finantzaketa indartu zen berriz, hau da, tituluak finantza-merkatuetan jaulkiz eta ezarriz egiten den finantzaketa mota. Koro Navarro

---

eurokutxa *iz* Europar Batasuneko aurrezki kutxa.

14 milioi euro gostako baita, horren laurdena FEDER **eurokutxatik** esperantza du hiri elkargoak. Herria

---

eurolegebiltzar *iz* Europako legebiltzarra.

Aldiz 12 bat europar deputatuek osatu taldeak, hoietan Gerard Onesta berdea, **eurolegebiltzar** buru ordea, Helmut Marlov (PSD), Bernat Joan (ERC), edo Mary lou Mc Donald (sin fein...), hitzarmenerako mahainaren lanen ikuskari bezala parte hartzeko gutizia jakinarazia du. Herria

---

eurolegebiltzarkide *iz* eurolegebiltzarreko kidea.

Erretratuan, Barbara Durhkop **eurolegebiltzarkidea** eta Enrique Casasen alarguna. Iñigo Aranbarri

---

Euroliga 1 *iz* europar saskibaloi liga.

Europan eskarmentu gehiegirik ez duen jokalaria da, baina aurten **Euroliga** jokatu du AEKrekin. Berria - Kirola

40 urte luzeren ostean, **Euroliga** irabazteko aukera ezin hobea da CSKArentzat. Berria - Kirola

Oraingoz, Jaurlaritzak ez dio Baskoniari ACBn laguntzen, bakarrik **Euroligan** jokatzen duenean baizik. Berria - Kirola

Tauk lehen faseko hiru talde onenak saihestu ditu **Euroligan**. Berria - Kirola

Euroligan gora egin behar du Tau Baskoniak nahitaez, ustez apalagoa den talde bati irabazita. Berria - Kirola

Jugoplasticak 1989-1991 urte artean hiru aldiz irabazi zuen **Euroligako** Lauko Finala. Berria - Kirola

Euroligako A Multzoko lehen postuan bukatu du Baskoniak lehen fasea. Berria - Kirola

Euroligako lehen faseko zortzigarren jardunaldia. Berria - Kirola

Euroligako bigarren fasea, berriz, garaipen bakarrera du, eta gaur bertan eman dezake azken pausoa, AEKren aurka. Berria - Kirola

Euroligako final-laurdenetarako bidea hasiko du Baskoniak Alemanian. Berria - Kirola

Euroligako Top 16ko bosgarren jardunaldia bukatuta, sei taldek lortu dute final-laurdenak jokatzeko txartela. Berria - Kirola

Lau final eta 35 urte behar izan ditu Errusiako taldeak **Euroligako** txapela lortzeko. Berria - Kirola

Euroligako A Multzoko talde ahulenetako baten aurka jokatu arren, lan eskerga egin beharko du. Berria - Kirola

Euroligako buruan jarraitzen du Baskoniak, Olimpijaren aurka garaipen erraza lortu ondoren. Berria - Kirola

Garai batean FIBAko txapelketek zituzten ajeak sumatzen hasi zaizkio **Euroligari**: epaileen irizpide aldakorra, talde batzuen instalazio eskasak. Berria - Kirola

Euroligara begira futsezkoa zaigu partida irabaztea. Berria - Kirola

Euroliga txukuna egiten ari da Alemaniako Bamberg, Tauren gaurko aurkaria. Berria - Kirola

Aurtengo **Euroliga**, ordea, kirola ez den beste arazo batengatik dago baldintzatuta: kokalekuagatik. Berria - Kirola

Europako saskibaloiak izan duen talde onenaren marka berdintzeko aukera izango du Maccabik: hirugarren **Euroliga** jarraian irabaztekoa. Berria - Kirola

Hirugarren **Euroliga** erreskadan lor dezake Maccabik, orain arte Jugoplastica mitikoak baino lortu ez duen marka. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

aurtengo euroligan (3); **baina euroligako** (5); **baskoniak euroligako** (12); **da euroligako** (3); **da euroligan** (4); **dira euroligako** (4); **dira euroligako lehen** (3); **du euroliga** (4); **du euroligako** (4); **eta euroliga** (5); **eta euroliga artean** (3); **eta euroligako** (7); **eta euroligan** (3); **euroliga artean** (3); **euroliga irabazi** (6); **euroliga irabazteko** (4); **euroligako a** (4); **euroligako a multzoko** (3); **euroligako azken** (4); **euroligako bigarren** (16); **euroligako bigarren fasea** (5); **euroligako bigarren fasean** (3); **euroligako bigarren faseko** (4); **euroligako defentsa** (5); **euroligako defentsa sendoena** (3); **euroligako final** (20); **euroligako final laurdenak** (4); **euroligako final laurdenetako** (3); **euroligako final laurdenetan** (4); **euroligako hirurtekoa** (6); **euroligako joko** (3); **euroligako lauko** (12); **euroligako lauko finala** (6); **euroligako lauko finalean** (4); **euroligako lehen** (48); **euroligako lehen fasea** (11); **euroligako lehen fasean** (7); **euroligako lehen faseko** (17); **euroligako partida** (4); **euroligako talde** (7); **euroligako top** (13); **euroligako txapela** (4); **euroligan aurrera** (6); **euroligan aurrera jarraitzeko** (3); **euroligan eta** (3); **falta dira euroligako** (3); **gasteiz euroligako** (8); **gasteiz euroligako lehen** (5); **saskibaloia euroliga** (5); **saskibaloia euroligako** (4); **tau baskoniak euroligako** (4); **tauk euroliga** (3); **tauk euroligako** (4); **zuen euroligako** (4)

---

euromarko *iz* bost euroko moneta.

Eurodolarren merkatua, 1960ko hamarraldian bigarren mailako fenomenoa izan zena -eta, orokorrago, xenodiruen merkatua (**euromarkoak**, asiardolarrak, etab.) -, nazioarteko finantzen ardatz bihurtu zen petrolioaren krisiaren ondorioz. Koro Navarro

---

euromerkatu *iz* Europar Batasuneko finantza merkatua.

Heldu den igandean Euroazoka edo **Euromerkatua** iraganen da Santiagoko zubian. Herria

Euromerkatuek garapen-bideko herrialdeentzat zuten erakargarritasuna are handiagoa zen, haiei esker Munduko Bankuaren bitartekaritza saihets baitzitekeen. Koro Navarro

Euromerkatuek 1973 ondoren zuten likidotasun izugarriak halabeharrezko eragina izan zuen merkatu horietan esku hartzen zutenen finantza-jokamoldeetan. Koro Navarro

Munduko Bankua, garapenaren finantzaketan espezializatua, zokoratua utzi zuen **euromerkatuen** goraldiak. Koro Navarro

Euromerkatuetan kontrataturiko maileguen interesak hiru bider handitzea. Koro Navarro

Zerga horren ondorioz, dolarretako finantzaketa- eskaria Estatu Batuetako merkatuetatik **euromerkatuetara** desbideratu zen, estatubatuar bankuen filialek askatasun osoaz joka baitzezaketen Europan. Koro Navarro

---

europano *(orobat **Europano** g.er.) izlag/izond ipar* europarra.

Preseski ingles egunkari bati esker bertze zortzi **europano** erresumek jakin arazi dute hek ere zutela Estatu Batuen alderdia atxikitzen. Herria

Putinek nahi ditu hobetu harreman horiek, bertze **europano** herriekin eginak dituen bezala politikaren gora beheretan. Herria

Bilkura hortan aipatu dute, eta apailatu gisa batez, heldu den ilabetean Suedan **europano** gobernu edo herri buruzagiek egin behar duten bilkura nausia. Herria

Azkenean **europano** auzitegi nausiari dute dei egin eta hunek ihardetsi diote Papon-en auzia etzela arras zuzena, eta zuzenago bat zuela beraz hartze. Herria

Buru horietarik bat izanen da **europano** lehen minixtroek izendatuko duten gobernuarena, bertzea berriz batzorde kontseiluaren buru **europano** deputatuek ezarriko dutena. Herria

Bide hortan sustengaturik daude **europano** morroi zenbaiten ganik: Tony Blair, Aznar, Berlusconi. Herria

Estrasburgeko **europano** deputatuek xede bat onartu dute gisa berean laudatzen dituenak zapatistak eta Fox presidenta. Herria

Bruxelles-eko **europano** arduradunak zituzten guziz partida frantses arraintzaleek. Herria

2 (izen gisa)

Botz apailatze denbora huntan nahi luke **Europanoek** eta Amerikanoek ezagut eta lauda dezaten haren borondate ona, berriz segurtatuz Ugandari orai artio egin dakoten

laguntza. Heien kantuen bidez -bon, ezkertiarrak dira, bainan bon, hautu bat da hori ere...- eta heien kantuan frantsesek, frantsesek eta **europanoek**, aurkitu zutela hor bazela zerbait. Herria

Erruso gobernuak gaitzituarena egiten du, **Europanoak** ari direla "Berlineko murru" berri baten eraikitzen Errusiaren eta Europaren artean. Herria

Azpeitiano autozentratuen azpeitiarrismoak, eta kosmopolitta merkeak, eta **europano** barrenustelak, eta... ixo, ixo, aski da gaurkoz. Iñaki Segurola

Turkiadute ezatabada bide **Europanoek**, beharko denez onartu ala ez Europa Batuan berak galdegiten duen bezala. Herria

Europanoak aldiz ez dira hain presatuak beren baimenaren emaiterat, makur batzu baitira oraino xuxentzekoak, hala nola Xipre ugarteaz direnak Turkiaren eta Greziaren artean. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta europano (3); **eta europano** (3); **europano batzordearen** (3); **europano batzordearen** (3)

---

europar *(orobat **europatar** g.er. eta **europatiar** g.er.)* **1** *izlag* Europan sortua, Europari dagokiona.

Lehendik ere **europar** biztanleak bizi ziren bertan. Koro Navarro

Jon Aboitiz **europar** pilotari zaharra aurkitu behar zuen. Ramuntxo Etxeberri

Europar gizarteak ez du, oro har, begi onez ikusten nekazaritzan aplikatutako transgenikoen bioteknologia. Askoren artean

Sinetsarazi beharko genien **Europar** enpresari dirudunak ginela eta gure Hong Kongeko bulegoentzat diploma gabeko idazkariak behar genituela. Ramuntxo Etxeberri

Zorkutxak sortu ziren, **europar** funtzionarioek kudeatuak. Koro Navarro

Europar dirudunak han elkartzen ziren. Ramuntxo Etxeberri

"Integrazio" hitzak, hemen, Europak eta **europar** kolonoek bortxaz eta sistematikoki beretu zituztela kontinenteko meategi eta nekazaritza-aberastasunak esan nahi du **Europar** beltz-tratulariek gai manufakturatuen truke hartzen zituzten esklaboak Afrikako kostaldeetan. esan nion, ongi begiratuta, Madril **europar** hiribururik ederrenetakoa dela, eta asmoa nuela lehenago edo geroxeago, eta beste egitekorik gabe, turista moduan joateko, Erroma edo Paris edo Londresera joan ohi nintzen bezala. Koro Navarro

Anberes bihurtu zen XVI. mendean lehen **europar** portua. Koro Navarro

Jakin behar da garai hartan, **Europar** herriek eremuak bazituztela Txinan bertan. Ramuntxo Etxeberri

Ordudanik, **europar** nazio handiak elkarren lehiakide izan ziren alor gehienetan, gaur egun gertatzen den bezalaxe. Koro Navarro

1980ko hamarraldiko bigarren erdiko nazioarteko zuzeneko inbertsioen gorakada, aurrenik, **europar** eta japoniar enpresen ekoizpen-jardueren nazioartekotze lasterraren ondorio da. Koro Navarro

Europar Diru Sistema. Berria - Mundua

Europar Ekonomia Elkargoa. Koro Navarro

Nazio Batuak, Munduko Bankua, Garapenerako **Europar** Funtsa. Koro Navarro

Europar mundu-ekonomiaren sorrera. Koro Navarro

Toki batzuetan, Alemanian esaterako, lehenago etorriko da mozketa hori, **Europar** Batzordeak onartu duenaren arabera. Pello Salaburu

Europar elizetan eskatzen zen isiltasuna eta errespetu giro dorpea ez zen batere nabari. Ramuntxo Etxeberri

1914-18ko gerrako **europar** borroka-lekuetan. Iñaki Mendiguren

Europar, eurasiar eta asiarren estatus uniformeak Indian Britainiar Inperioaren pean. Iñaki Mendiguren

Madrilgo gobernuak **europar** hauteskundetan aurkeztu nahi duen Herritarren Zerrenda nahi du debekatu. Herria

Horrez gainera, izugarri areagotu ziren **europar** ekoizpen-aparatuaren premiak (lehengaienak). Koro Navarro

Europar produktu manufakturatuak ez ziren jada esklaboen truke aldatzen. Koro Navarro

Esan beharra dago Euskaldunon Egunkaria MIDAS (European Organization of Daily Newspapers in Minority and Regional Languages) **europar** sarearen baitan zegoela, beste hainbat eskualde-hizkuntzatan argitaratzen diren 28 egunkarirekin batera. Berria - Harian

Beharbada, **europar** gizaeraren historia erljiozkoa bi kontrajarrera horien arteko burruka minera biltzen da. Patziku Perurena

Gatazkaren konponbidea «EBko agendan sartu eta **europar** instituzioak inplikatu» nahi ditu Batasunak. Berria - Euskal Herria

Batetik, **europar** nortasuna aztertuko dute, **europar** kulturaren bereizgarriak aurkitu nahian. Berria - Kultura

Europar kulturak Espainian zuen eragina egiaz urria zen, eta gai teknikoetara mugatua. Josu Zabaleta

Mende batzuk lehenago sortutako Kristautasuna izan zen **europar** pentsaera kanpotik baldintzatu zuen gertakari historiko eta kulturala, hasi Antzinate Berantiarrean, eta gero Erdi Aro osoan zehar. Askoren artean

Hizkuntza txikien babesa ezinbesteko da baldin eta gura bada **europar** kulturaren ondarea eta balioak euren osotasunean iraunarazi. Edorta Jimenez

Europako Konstituzioa eta **europar** neoliberalismoa. Berria - Euskal Herria

Proiektuak **europar** eraikuntzaren «ezaugarri liberala mantentzen» duela diote. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta gure artean Sharunas Bartas (Siailia, Lituania, 1964) zinema zuzendariaren filmak guztiz ezezagunak izan, Cannes, Berlin, Venezia eta beste hainbat **europar** zinema jaialditan beren tokia aurkitu dute. Berria - Kultura

"Zergatik ote da **europar** zibilizazioa hain aurreratua eta distiratsua?", galdetzen du Herderrek berak hizkuntzen jatorriei buruz egindako txostenean. Bernardo Atxaga

Edozein esparru ideologikok, kristaua, sozialista, edo nazionalista izan, unibertsala du nahitaez bere azken xedea, **europar** Ilustrazioak kulturaren eta zientziaren unibertsaltasuna proposatu zuen gisa berean. Joseba Zulaika

Ambronayko **Europar** Akademia Barrokoak 'Acteón' opera eskainiko du bihar Kursaalean. Berria - Kultura

Artelan heroikoa zen bi eskultoreena, erlijio sentimenduz betea, **Europar** abangoardien grina titanikoaz egina, beren herriaren hondamendiaren aurkako lekuko bortitza. Joseba Zulaika

Aipatu genuen joan den hileko lehen egunean (Ik Abuztuak 1ekoa), zelten arteko eta **europar** beste lurralde batzuetako ospakizun zenbait, Merkurio jainkoari eskainiak zirenak, San Migelen jaieraz estali zirela. Pello Zabala

Etxola umel eta ilunaren barruan bi lagun zeuden; batak **europar** itxura zuen. Jon Alonso

Lapurtarrak Bigarren Mailako lehiaketan ariko dira, **Europar** Challengean alegia. Berria - Kirola

Europar kutsuko derbia. Berria - Kirola

2 (izenondo gisa)

Buruzagi **europarren** erantzukizuna da Lisboako goi bileran hitzartutako erreforma ekonomikoak gauzatzea, Europa munduko lehen eragile ekonomiko bihurtzeko. Berria - Mundua

Amerikar jostunek soineko koloretsuak egiten dituzte Europako emakumeentzat, eta jostun **europarrek**, berriz, soineko ilunak Amerikakoentzat. Anjel Lertxundi

Gizarte Eredu **Europarraren** Erronkak. Berria - Euskal Herria

Zer da espiritu **europarra**, historiagintza hemendik aurrera eskuan berak daukana? Erlatibismoa! Joxe Azurmendi

Munduko ekonomia, sistema integratu gisa duela hamarraldi batzuk taxutzen hasi zena, mundu-ekonomia **europarra** izan zen hasieran, bestela esanda, ardatza Europan zuen mundu ekonomikoa zen. Koro Navarro

Gaur egun alderdi **europarrik** ez dagoela nabarmendu du Palmerrek. Berria - Mundua

Ortega-k nazio asiarrak eta **europarrak** bereizten ditu: nazio asiarrak nazio ezberdinen nahas-mahas bereizgabetik ilkiak dira. Joxe Azurmendi

Herri **europarrak**, batez ere germaniarrak, ez du bere buruaz etsi eta lo hartu nahi. Patziku Perurena

Perm probintzian dago, eta, beraz, Errusia **europarreko** barruti handienetako batek hartzen du bere barnean. Karlos Zabala

Iparraldeko ibaietan ere bisoi **europar** dezente daude. Berria - Gaiak

Kostalde hauetara Mayflower hartan aterpe bila aitzindari **europar** haiek nola, agian halaxe etorriko dira hona beste puritano batzuk White Sandow delakoan, horixe baita ontziaren izena. Edorta Jimenez

Behin eta berriro azpimarratu zuten antolatzaileek, «abertzale eta aurrerakoi guztiok gaude konstituzio **europarraren** aurka». Berria - Harian

Pentsamendu **europar** tradizionala horixe izan da bi mila urte baino gehiagoan, dio Berlinek. Joxe Azurmendi

Iritzi publiko **europarra** lantzen. Berria - Euskal Herria

Demokraziaren aldeko sare parlamentario **europarra**. Berria - Euskal Herria

Euskal auziaren dimentsio **europarra** aipatu du ETAk behin baino gehiagotan. Berria - Harian

Heziketa **europar** distiratsuak. Jose Morales

Garaipen baten euforia ezin disimulatua bizi du "kultura **europar"** klasikoak: ideia "faxistek" ikusi baitugu nora eraman zuten. Joxe Azurmendi

Estrasburgoko parlamentuan Ezker **Europar** Batua taldean jarduten du egun, beste 50 erakundeekin batera. Berria - Euskal Herria

Duela bi urte espazio juridiko **europar** bat sortu zuten.1967an, Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko gobernuek programa aeronautiko **europar** bat abiatzea erabaki zuten. Berria - Euskal Herria

Europa suntsiturik eta elkarren kontrako bi bloketan zatiturik atera zen; superpotentzia erdi-**europar** batek agintzen zuen bloke bakoitzean. Koro Navarro

Hiri hau, Lille -esan du andereak-, guztiz **europarra** da, historian zehar askoren menpe egon delako, flandriarra izan da, frantsesa, espainola, hasburgotarra eta abar. Edorta Jimenez

Kristau asmo hutsa, sekula izan ote liteke zinez errotik **europar**? Patziku Perurena

3 *iz* Europako herritarra.

Aspaldian errana dut euskalduna naizela sortzez, frantsesa legez eta **europarra** ametsez. Herria

Jose Almeida gazte portugesa, hainbat naziotako beste **europar** asko bezala, Ameriketara joan zen. Martin Anso

Hala da Espainian, bozkatuko baitute otsailaren 20-ean; beldurrik gabe erran behar da hasia dela Europa guzian, espainiarreri esplikatzen zaiona, frantses edo **Europar** guziek adi dezaketelakotz. Herria

Atzerritarrak esatean **europarrak** esan nahi dugu, **europarrak** gu baino askoz ere jende ikasiagoa baitira geure ustez. Matías Múgica

Europarrak hipokritak dira oso, eta begiak ixten dituzte. Berria - Mundua

Europarren kezkak zein diren, zein EB nahi duten eta Konstituziorik nahi duten jakin behar da etorkizuna erabaki aurretik. Berria - Harian

Europarren helburu nagusia, lehen garaian, urrearen eta boliaren bidea zabaltzea zen, eta esklaboen bidea zabaltzea XVI. mendearen bukaeratik aurrera. Koro Navarro

Kriolloa -Txepetxek ohartarazten gaituenez- indigenista agertzen da **europarron** aurrean, indioen ondorengo eta aldezle, baina guztiz europar jokatzen du gero indio horiexen aurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Poligamia inmorala ote da? Mahomatar batentzat Jainkoak berak onetsia da; **europar** batentzat, bere erlijioak gaitzetsia, Zuzenbideak zigortua, gizarteak gaitziritzia. Joxe Azurmendi

Europar zenez gero, beste behin ere galtzaileekin zegoen, bi botere berrien garaipena aurreikusi baitzuen, Amerikarena eta Errusiarena,... Europa bazterturik utziko zutenak. Joseba Zulaika

Frantziak, aurrenik, 1830ean heldu zion Aljeriaren kolonizazioari, eta hala, 1900erako, seiehun mila **europar** bizi ziren bertan. Koro Navarro

Magrebiar hazpegiak dituen gizon gazte bat, **europar** peto-petoa ematen duen neska gaztea eta hooligan bat tratuan doaz gure begien aurrean. Edorta Jimenez

Hain **europar** demokratak gu, banana errepublika deitzen zaien Ameriketako herrialde batzuek adina egiteko gauza ere ez gara izan. Berria - Euskal Herria

Eta hor ari gara **europar** aspergarriak gure bizitza eta ondasunak hogeiren bat laukitxotan laburtzen dituen orria betetzen. Pako Aristi

Europar zahar bat. Ramuntxo Etxeberri

Bistakoa duk ez direla **europar** soilak. Xabier Olarra

Europar dotoreak begirada saihestu zuen, emazte ohia maitale berriarekin ikusten duenaren saminaz. Alberto Ladron Arana

Gure mitomaniak eta kontu handiak alde batera, badirudi, zelten gisako azken **europarrak** garela euskaldunok. Patziku Perurena

Asko falta zaigu ohartzeko zenbatetaraino garen **europarrak** eta nolatan **europar** izateari ezin diogun utzi. Berria - Euskal Herria

Kendu zientzia, eta **europarra** afrikar edo asiarraren parekoa da. Joxe Azurmendi

Filipindarrak amerikarrekin batera borrokatu ziren **Europarren** kanporatzeko. Ramuntxo Etxeberri

Deabrua ez da **europarren** edo amerikanoen inperialismoa, inkultura eta basakeria baizik. Joxe Azurmendi

4 ***Europar Batasuna*** Europar kontinentearen erdialdea eta mendebalaldea ia osorik hartzen dituen komunitate politiko eta ekonomikoa.

Eragin-eremu berezi bana sortu da munduko hiru botere ekonomiko handien inguruan (Estatu Batuak, **Europar Batasuna** eta Japonia). Koro Navarro

Araudi horretan markatua izanen da **europar Batasuna** 25 estatuk osatzen dutela, gaurko hamabostek eta hiruzpalau urte barne sartuko diren beste hamarrek. Herria

Europar Batasunak eta gobernuek laguntza asko eman izan dituzte gaurkotze prestakuntza hau bultzatzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Produktu batzuek ez dituzte **Europar Batasunak** zehaztutako arauak errespetatzen; kontuz ibili behar da aukeratzerakoan. Berria - Euskal Herria

Herrialde zordunak behartuta daude Munduko Bankuak antolatu eta beste erakunde batzuek ere, **Europar Batasunak** adibidez, eskatzen dituzten egiturazko doikuntza-programak (hala esaten zaie) abian jartzera. Koro Navarro

Ekonomia, segurtasuna, ingurugiroa, eta abarren gaineko subiranotasuna **Europar Batasunaren** esku uzteak ez du atzerabiderik dagoeneko. Joseba Zulaika

Azpimarratzekoa da, hala ere, inbestimendu publikoei dagokiela EAE eta **Europar Batasunaren** artean dagoen alde handiena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planaren helburuak betetzen badira, 2004an 1'7koa izango da ehuneko hori eta **Europar Batasunari** dagokion baliotik hurbilago geratuko gara. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

1992-1993 urteetako EDSren krisiak agerian utzi zuen berriz ere **Europar Batasunaren** baitako ekonomia-politiken koordinazio falta. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi europarrak (3); **bat europar** (3); **beste europar** (4); **bisoi europar** (4); **bisoi europarra** (9); **bisoi europarrak** (5); **bisoi europarraren** (11); **bisoi europarrari** (4); **bisoi europarren** (3); **da europar** (11); **da europarra** (5); **edo europar** (7); **eraikuntza europarraren** (3); **ere europar** (4); **esparru europarra** (3); **eta europar** (43); **eta europarra** (4); **eta europarrak** (7); **eta europarrek** (5); **eta europarren** (4); **europar akademia** (3); **europar alderdi** (4); **europar askok** (3); **europar bat** (8); **europar batasuna** (11); **europar batasunak** (9); **europar batasunaren** (8); **europar batasunari** (4); **europar batasunean** (12); **europar batasuneko** (12); **europar batasunetik** (3); **europar batek** (3); **europar baten** (3); **europar batzuek** (3); **europar bihurtuko** (4); **europar bihurtuko da** (3); **europar demokrazia** (5); **europar diru** (12); **europar diru sistemaren** (3); **europar erara** (4); **europar eta** (8); **europar guztien** (3); **europar herriek** (3); **europar kultura** (3); **europar mundu** (16); **europar mundu ekonomiaren** (8); **europarra ametsez** (3); **europarra da** (5); **europarra eta** (6); **europarra ez** (3); **europarra izan** (4); **europarra izango** (3); **europarra izateko** (4); **europarra izateko lehenengo** (4); **europarrak eta** (5); **europarrak garela** (3); **europarrak izan** (3); **europarrek beren** (3); **europarren artean** (4); **ez da europarra** (3); **mendebaldeko europar** (8); **milioi europarrek** (3); **milioi europarren** (4); **zen europar** (7); **zuen europar** (3); **zuten europarrek** (3)

Europaratu, europaratzen *(orobat **europaratu**)* du *ad* Europara bildu; Europara eraman.

Bayrou batek berriz beti Turkiaren **Europaratzeak** ez duela itxurarik. Herria

Hamargarren nazionea zen Letonia **europaratzeaz** bozkatu behar zuena eta hori egina izanen da helduden maiatzaren lehena goiti. Herria

Repsolek eta Gas Naturalek kontratu bat lortu berri dute Aljeriako gas putzuak ustiatzeko, eta itsasontziak behar dituzte erregaia **Europaratzeko**. Berria - Ekonomia

---

europarlamentari *(orobat **europarlamentario**)* **1** *iz* Europako parlamentuko kidea.

Auzia ixteko eskatu zuten, hala nola, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, Espainiako Kongresuko eta Senatuko 61 diputatuk eta senatarik (PP eta PSOE ez beste alderdi guztietakoak), hainbat **europarlamentarik** eta milaka herritarrek. Berria - Euskal Herria

Europarlamentari batek non eman behar du denbora gehiago, Bruselan edo bere herrian? Berria - Euskal Herria

«**Europarlamentariren** bat lortzea» du helburu Aralarrek. Berria - Euskal Herria

Europako Legebiltzarrean bi **europarlamentari** lortuko dituelakoan dira hiru alderdiak, eta hirugarrena lortzea izango dute helburu. Berria - Euskal Herria

Talde honetan izango da Josu Ortuondo, EAJko **europarlamentario** dena Galeusca-Herrien Europa koalizioaren baitan. Berria - Euskal Herria

Garraio eta Energia Batzordeko Thielmannekin ere bilera egin zuten; baita Frantziako Liga Komunista Iraultzaileko eta Alemaniako SPDko **europarlamentariekin** ere. Berria - Euskal Herria

UPN-PPko politikaria 1993tik da Europako **europarlamentarioa** eta, ez du zalantzarik berriro aulkia lortuko duela. Berria - Euskal Herria

Ez litzateke ona izango Brusela eta Estrasburgo **europarlamentari** arrotzez beteta egotea, lekuz kanpo egongo ginatekeelako. Berria - Euskal Herria

Josu Ortuondo **europarlamentari** jeltzalea izango da koalizioak izango duen lehen euskal ordezkaria; Galeuskaren zerrendan bigarren tokia izango du. Berria - Euskal Herria

Europako Konstituzioaren aurka egoteko arrazoiak badirela adierazi zuten atzo EAko presidente Begoña Erraztik, alderdiko **europarlamentario** Mikel Irujok eta Europako Aliantza Libreko (EAL) lehendakari Nelly Maesek, Bilbon eskainitako prentsaurreko batean. Berria - Euskal Herria

Koldo Gorostiaga **Europarlamentaria**. Herria

Europarlamentariak hegazkinetako lehen kategorian astelehenean joan eta ostegunean itzultzen diren gorbatadunak zaretela entzun dut. Berria - Euskal Herria

2 (izenondo gisa)

Mediterraneoko Batzar **Europarlamentarioan** parte hartzera joandako ordezkaritza palestinarrari estatuan sartzea galarazi zion atzo Belgikako Gobernuak. Berria - Mundua

---

europarlamentario ik **europarlamentari**.

Europarlamentu *(orobat **europarlamentu**) iz* Europar Batasuneko legebiltzarra.

Turco txosten bat prestatzen ari da Europako espetxeei buruz, **Europarlamentuan** aurkezteko. Berria - Euskal Herria

Europarlamentuan diputatu asko zeuden atzo eta txaloka hartu zuten Ebad. Berria - Euskal Herria

Bakearen aldeko foroa **europarlamentuan**. Herria

Europarlamentuak bakearen bermatzaile izan behar duela dio Aralarrek. Berria - Euskal Herria

Diru hori Gorostiagarena zela esan zuten haiek eta **Europarlamentuak** ikerketa abiatu zuen orduan. Berria - Euskal Herria

Herritarren parte-hartze zuzena ere ez da bermatzen; soilik **Europarlamenturako** botoa emateko aukera dugu, gero ez dugu hitzik ez Presidentetzaren hautaketan, ez Banku Zentralaren kontrolean. Berria - Euskal Herria

---

europartasun *iz* europar izateko nolakotasuna.

Politikaz mintzatu ziren autobusean, Euskal Herriko mugimendu abertzalea sendotu beharraz, gobernuen jarrera zekenaz, arteaz eta Guggenheimaren izaera inposatuaz, San Cristobalen **europartasunaz** eta bertaratutako sasi-hippien aurpegibikotasunaz. Eider Rodriguez

Hegazkinaren **europartasun** horren erakusgarri izan daiteke haren eraikuntzarako egitura. Berria - Harian

Batasun politiko sendoak **europartasun** kontzientzia eskatzen du, ordea. Iñaki Heras

---

europartu, europar(tu), europartzen da/du *ad* europar bihurtu.

Espainia, **europartuz** bihurtuko da zinez espainola. Joxe Azurmendi

Eta hau dena, Espainia barnean aspalditxotik dabiltzan beste istilu nahasien erdian: tradizioa versus progresua, kastizismoa versus **europartu** beharra, etc. Joxe Azurmendi

Mendebaldeko pertsonengan edo pertsona **europartuengan** hainbestetan eta hain modu desberdinetan aztertu den irudiarekiko erlazioaren unibertsaltasuna zalantzan jartzera eraman zituen "landa-lan" baten emaitzak argitaratu dituzte. Josu Zabaleta

Eskolatu gutxi batzuk salbu, **europartuak**, jende xume hori guztia, analfabetoa gehien-gehienbat. Joxe Azurmendi

Txapelketak taktikoki **europartutako** talde anitz erakutsi ditu, Boli Kosta nagusiki. Berria - Kirola

Eta bakarrik, Ortega-rentzat ere arazoa Espainiaren arimaren salbazioa da; bere kasuan, arima hori **europartzea**: [...]. Joxe Azurmendi

---

europartze *iz* europar bihurtzea.

«**Europartzearen** aldeko apostu sendoa egitea» edo «integrazioa eta elkartasuna bultzatzea» proposatzen ditu EAJk bere hauteskunde programan, besteak beste. Berria - Euskal Herria

Euskal identitate erradikalizatu baten eskaera zegoen ETAren hasieran, eta oraindik ere **europartzeari** eta globalizazioari gaur egun egokituko zaizkion euskal identitate berrien erreklamoak daude jokoan. Joseba Zulaika

---

europarzale *izond* europarren zalea dena.

Aurkari politikoek Europaren aurkakoak garela zabaldu nahi izango dute, eta hori saihestu behar dugu, Euskadiko nazionalistak **europarzaleak** izan baikara beti. Berria - Euskal Herria

---

europatar ik **europar**.

---

europatiar ik **europar**.

---

europazale *(orobat **Europazale**)* **1** *izond/iz* Europaren zalea dena.

Jose Antonio Agirreren alderdiak, EAJk, mugimendu **europazalearen** aitzindarietako bat izan dela aldarrikatu izan du beti. Berria - Euskal Herria

Indar **europazalea** da Batasuna ere, baina bere erara. Berria - Euskal Herria

Horretan, esaterako, jarrera **europazale** nabarmena duten Italiako eta Herbehereetako sozialistek, Toni Blairren alderdiko euroeszeptikoekin talka egiten dute talde berean. Berria - Mundua

Herritarrek aukeratu egin beharko dute sozialisten politika **europazale** eta aurrerakoiaren alde edota popularren politika atzerakoi eta Europaren aurkakoaren alde. Berria - Euskal Herria

Ezezkoarentzako tokirik ez dagoela dio txostenak, aurreko itunekin alderatuta egungoa «aurrerapen bat» delako, bai ikuspegi **europazaletik** begiratuta bai «estatu azpiko errealitateei» ematen zaien tokia kontuan hartuta. Berria - Euskal Herria

Biztanleak euroeszeptiko eta **europazale** artean banatuta egoteaz gain, **europazaleen** artean, Spidlaren aldekoak eta aurkakoak daude. Berria - Mundua

Europazalea zen, sinesdun handia, eta ere tokiko hizkuntzeri errotik atxikia, hala nola euskarari. Herria

Frantziarrak oro har oso **europazaleak** direla uste du, hala ere, UDFko kideak. Berria - Harian

Euskal abertzaletasuna, hasierako ETA hura barne, historian zehar **europazalea** eta internazionalista izan da. Joseba Zulaika

Demokrata **Europazaleak** dira. Hasier Etxeberria

Jainkoari esker eta **Europazaleeri** esker ez dugu gehiago holakorik ikusiko Europan bederen. Herria

Europazale irmoa baldin bada ere, 48 urteko agintari honek Ameriketako Estatu Batuaren aldeko jarrera tinkoa azaldu du behin eta berriro. Berria - Mundua

Europako Alderdi Demokratak «sakonki **europazaletzat**» dauka bere burua, eta «Europa federalaren alde» egiteko asmoa du. Berria - Euskal Herria

2 (adizlagun gisa)

Idazle granadatarrak eragin handia izan du, oraindik **europazale** zebilen Unamuno gaztearen gain. Joxe Azurmendi

---

europazaletasun *iz* Europaren aldeko zaletasuna.

Politikagintzan, kirolean zein gizarte mailan «pertsona ezaguna» izan zela oroitu ondoren, haren «abertzaletasuna, izaera demokratikoa, **europazaletasuna**, giza eskubideen errespetua, euskararekiko maitasuna, sinismena eta jokabide etikoa oinarri» zituelako, «bera bezalako gizon-emakume gutxi aurki daitezke», ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

CDCk uztaileko kongresuan Europako Konstituzioari ezetz esan zion hizkuntza katalanarekin bat ez datorrelako eta erabaki honek ez diote batere laguntzen Pujol eta Duranek prosatzen duten federazio ideiari, biak **europazaletasuna** aldarrikatu baitute. Berria - Mundua

Euskal Herriko erakundeen eta alderdien **europazaletasuna** aztertu du Alexander Ugalde irakasleak EHUko Udako Ikastaroetan EAJren **europazaletasunean** Agirre izan zen gakoa, ala Landaburuk, Irujok eta bestek haren pareko garrantzia izan zuten? Berria - Euskal Herria

Euskal **europazaletasunaren** aurrekari historikoak. Berria - Euskal Herria

---

europear ik **europar**.

---

europeismo *iz* europarzaletasuna.

Europeismo kritikoa ikusi dugu. Berria - Harian

---

europeista *izond* Europa batuaren aldekoa.

Ni betidanik egon naiz **europeista** horien kontra, esan nahi dut Europako Batasunarentzat lan egiten dutenen kontra. Berria - Harian

«Gaullista eta **europeista**» irizten dio bere buruari Michel Barnierrek, eta 1993-95 artean Ingurumen ministro izan zen, Bruselako aferetaz arduratu aitzin. Berria - Mundua

---

europeizazio *iz* Europaren balioen aldeko bihurtzea.

Baina justu orain, bera positibismo eta razionalismoa destainatzen ari da, errekara botatzen modernitatea, progresoa mespretxatzen [...] intelektualismo "transpirenaikoa" erdeinatzen, Espainiari lehenago berak aldarrikaturiko **europeizazioaren** lekuan balio eternal erlijioso eta mistikoetara hots egiten. Joxe Azurmendi

---

europeo *izond* europarra.

Guggenheim eta Euskaldunagaz gara **europeoen** pare eta zulako nostalgikoentzat tranbia be jarri dabe. Berria - Kultura

---

eurotalde *iz* euroaren eremuko Ekonomia eta Finantza ministroek osatzen duten taldea.

Euroak dolarrarekiko hartu duen balioak kezkatuta, zerbait egiteko eskatu zioten atzo Euroguneko Ekonomia eta Finantza ministroek (**Eurotaldeak**) Ameriketako Estatu Batuei. Berria - Ekonomia

Jean Claude Juncker Luxenburgoko lehen ministroa da **Eurotaldeko** lehen presidente izateko hautagai nagusia. Berria - Harian

Orain arte **Eurotaldeko** presidentetza sei hilabetero aldatu egin da, baina Nicolas Sarkozy Frantziako Ekonomiak proposatu du hurrengo presidentea karguan bi urte eta erdiz egotea. Berria - Ekonomia

Eurotaldeak ez du izaera ofiziala eta hartzen dituen erabakiak Ekofinen baitan hartzen ditu. Berria - Ekonomia

---

Eurotunel *iz* Erresuma Batua *eta* Europa elkartzen dituen tunela.

Sail horretan, adibidez, Erresuma Batua eta Europa elkartzen dituen **Eurotunelaren**, Chicagoko Sears dorreen eta Dubaiko etxe orratzen lanak emango dituzte, 1990ean ireki zuten Britainia Handiaren eta Frantziaren arteko **Eurotunela**. Berria - Kultura

Ikuskizun dago inflazio tentsioak **Eurotunela** noiznola gurutzatzen duen. Berria - Ekonomia

Iñigo Makazaga 2001eko apirilean atxilotu zuten Doverren (Erresuma Batua), **Eurotunela** erabiliz Frantziara iristen saiatu zenean. Berria - Euskal Herria

---

eurozentriko *iz* zentrotzat Europa duena.

Hala ere, ohartuki edo oharkabean, nabarmen geratzen da egilearen ikuspegi arrazista eta **eurozentrikoa**, bereziki bortitza islamistei dagokienez, baina lausoago izanda ere aipagarria menpekotasun ekonomikoak baldintzaturiko giza harremanak ikusteko moduan. Berria - Kultura

Hegelekin batera, ideia arrazistak eta **eurozentrikoak** zabaldu: «Beltzak oso harroak dira, baina bere erara, eta hain berritsuak dira, ezen beharrezkoa baita beltzak kolpeka banantzea». Berria - Kultura

---

eurozentrismo *iz* Europa giza historiaren eta zibilizazioaren zentrotzat hartzen duen joera edo teoria.

Sortuko ote da **eurozentrismoa** ordezkatuko duen beste ikuspegirik mundua ulertzeko orduan? Pako Aristi

Karl Polanyik aurkeztu zuen 1944. urtean eredu klasiko horren eboluzionismoaren eta **eurozentrismoaren** kritika zorrotzenetako bat, The Great Transformation lanean. Koro Navarro

Modernitateak, gizakia subjektu absolutu deklaratuz, europarra deklaratu du gizakiaren eredu, **eurozentrismo** absolutua ezarri du. Berria - Kultura

---

eurozentrista *izond* eurozentrismoarena, eurozentrismoari dagokiona.

Orain arte, baina, Vatikanoa oso **eurozentrista** izan da, lar zentralizatzailea. Berria - Harian

Eurozentrista jarrita ere, badu nondik. Iñigo Aranbarri

---

eurrez *adlag* erruz, ugari.

Pippinek ezpatakada jaurtiki zuen gorantz, eta Mendernesseko orria adarrezko mintza zeharkatu eta organoetan barrena sartu zitzaion, eta odol beltza **eurrez** isuri zen zauritik. Agustin Otsoa

Irudiak, ezin uka daiteke, **eurrez** ugaldu dira azkeneko ehun urte hauetan; txunditzeko moduan eta geroz eta gehiago ugaldu ere. ohartzekoa da erlijioaren munduan sineskeriak **eurrez** aurkitzen direla eta, fedearen aitzakian, Jainkoaren ordez sasijainkoak gurtzea, eta menderakuntza eta agintekeria onartzea askotan gertatu izan dela, izaki razionalaren erantzukizun propioaz ahazturik. Josu Zabaleta

Nazioan **eurrez** zabalduta dauden argien aurrean, isildu egiten da ezjakintasun gezurtia, eta dardaraz jartzen arrazoiaren armarik ez duen aginteak. Juan Martin Elexpuru

Gure maisuek, gure lehen legegileek, errespetatu dute beren hirikideen odola; guk erraz eta **eurrez** darabilgu geureena. Juan Martin Elexpuru

Izan badira hitz bikote **eurrez** erabiliak: bero/gero, hazi/hezi, ikasi/ikusi [...]. Iñaki Arranz

---

eurt

1 ***eurt egin*** gelditu.

Etorkinen seme-alabak **euskalduntze** *bidean jarri nahi izatea ez zen, epaileen aburuz, arrazoi nahikoa hauek murgiltze ereduetara bideratzeko.* Berria - Harian

Elizak behar du herri osoaren **euskalduntze** *mugimenduan sartu.* Herria

Dionisio Amundarain, **euskalduntze** *mugimenduko aitzindari eta euskara batua finkatuz joan zen garaiko itzultzaile fina.* Xabier Mendiguren Elizegi

Nire **euskalduntze** *prozesuak 'Kutsidazu'-ren antz handiagoa du.* Berria - Kultura

Aurten egingo dira lehen ebaluaketak, bizpahiru urte hontan **euskalduntze** *urrats horietan sartuak diren hogoi bat herrirekin.* Herria

Horrela jarri ziren abian **euskalduntze** *eta alfabetatze saioak 60ko hamarkadaren erdialdean.* Koldo Zuazo

Alfabetatze eta **Euskalduntze** *Koordinakundea.* Iñaki Arranz

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
> ***administrazio atalen euskalduntzea*** *(4);* ***administrazioa euskalduntzea*** *(3);* ***administrazioaren euskalduntzea*** *(7);* ***alfabetatze euskalduntzea*** *(3);* ***atalen euskalduntzea*** *(4);* ***bai eskolak euskalduntzeari*** *(28);* ***belaunaldi berrien euskalduntzea*** *(7);* ***berrien euskalduntzea*** *(7);* ***da euskalduntze*** *(3);* ***eskolak euskalduntzearen*** *(4);* ***eskolak euskalduntzeari*** *(29);* ***eta euskalduntze*** *(3);* ***eta helduen euskalduntze*** *(3);* ***euskal herria euskalduntzea*** *(3);* ***euskalduntze alfabetatzea*** *(16);* ***euskalduntze alfabetatzeak*** *(3);* ***euskalduntze alfabetatzean*** *(4);* ***euskalduntze alfabetatzearen*** *(10);* ***euskalduntze eta*** *(8);* ***euskalduntze eta alfabetatzea*** *(3);* ***euskalduntze koordinakundeak*** *(3);* ***euskalduntze maila*** *(7);* ***euskalduntze osoa*** *(3);* ***euskalduntze plan*** *(3);* ***euskalduntze plana*** *(4);* ***euskalduntze planaren*** *(4);* ***euskalduntze prozesua*** *(8);* ***euskalduntze prozesuak*** *(6);* ***euskalduntze prozesuan*** *(6);* ***euskalduntze prozesuaren*** *(4);* ***euskalduntzea bermatzeko*** *(5);* ***euskalduntzea bermatzen*** *(5);* ***euskalduntzea eta*** *(5);* ***euskalduntzea ez*** *(3);* ***euskalduntzea ezinezkoa*** *(4);* ***euskalduntzea izan*** *(4);* ***euskalduntzea izan zen*** *(3);* ***euskalduntzearen alde*** *(7);* ***euskalduntzearen aldeko*** *(6);* ***helduen alfabetatze euskalduntzea*** *(3);* ***helduen euskalduntze*** *(35);* ***helduen euskalduntze alfabetatzea*** *(12);* ***helduen euskalduntze alfabetatzearen*** *(7);* ***helduen euskalduntze eta*** *(6);* ***helduen euskalduntzea*** *(4);* ***helduen euskalduntzean*** *(5);* ***herria euskalduntzea*** *(3);* ***ikasleen euskalduntzea*** *(9);* ***lan mundua euskalduntzea*** *(3);* ***mundua euskalduntzea*** *(3)*

---

euskalerritar ik ***euskal 1****.*

---

euskalgaizto *iz adkor erdarak kutsaturiko euskara.*

Eta gaitzerdi tabernazuloetakoa euskara zuzena balitz! **Euskalgaiztoa** *, orain zenbaitek "euskañola" deitzen duena, entzuten da sarriegi Euskal Telebistan.* Koldo Zuazo

Euskal Telebistan, berriz, badira lagunarteko **euskalgaiztoan** *egiten diren zenbait saio.* Koldo Zuazo

Bilboko euskara ez zela Bizkai osoan egiten zena ekarri zuen gogora, eta, Bilboko **euskalgaiztoaren** *aldean, euskara garbia eta zuzena egiten zela Bizkaiko gainerako alderdietan.* Koldo Zuazo

Euskal Telebistan, berriz, badira lagunarteko **euskalgaiztoan** *egiten diren zenbait saio.* Koldo Zuazo

---

euskalgarbi *izond euskara garbikoa.*

Proceditu, transmititu: horixe da hitz bihurtutako autoritatea, horixe da kultura, despentsamenduaren kartografia; proceditu, transmititu... eta intuitu, influitu, consolidatu, infeccionatu, normaliçatu, deconstruitu eta beste mila, aditzetan bakarrik gelditzen naizelarik eta horien ordain ***euskalgarbiak*** *alde batera lagata.* Iñaki Segurola

---

euskalgauza *iz euskal gauza.*

Gauza batzuk ***euskalgauza*** *bihurtu ditu eraikuntza nazionalak, eta besterik gabe onestekoak eta onak; beste batzuk, jakina, erdalgauza (zezenak, adibidez, baina ez idiak: kasu adibide honi!) deklaratu ditu.* Iñaki Segurola

---

euskalgauzatu *izond euskal gauza bihurtua.*

Konparazio batera, idi tristeak berentzat eta zezen suharrak besteentzat; gezurra badirudi ere, halaxe egiten dute batzuek partizioa komunitate ***euskalgauzatuan*** *, eta beren buruen kaltean, kanpotik ikusita behintzat.* Iñaki Segurola

---

euskalgauzatze *izond euskal gauza bihurtzea.*

Ez euskal presoak: ***euskalgauzatze*** *hori gertatu gabe zegoen garaiaz ari naiz, eta gainera politikoak ere bai eta horrelakoak ere esaten ziren tarteka, preso komun edo sozialak preso nazionalen aurretik jarriaz.* Iñaki Segurola

---

euskalgin *iz euskalgintzan ari den pertsona.*

Edo zer uste dute euskalbaxkoek?; zer uste dute euskaltzale eta ***euskalginek*** *?* Iñaki Segurola

Gaur Fernandoren egia bertsozko horiek oso nolabaiteko eta erdipurdikotzat dauzkate euskaltzaleek eta Euskalgintzako ***euskalginek*** *.* Iñaki Segurola

Kontzientziako poliziak, euskaltzalearen edo euskalgintzako ***euskalginaren*** *baitan, ordutegi jakinean bakarrik egiten du lana eta ezin harrapatu ditu jolas-ordu guztiak, edo estualdiak, edo oihu egin beharreko orduak, edo neurrigabeko poz edo etsimenduzkoak, onerako edo txarrerako samurraldi gordinenak, ostiaputako amorrazioak.* Iñaki Segurola

---

euskalgintza **1** *iz euskararen eta euskal kulturaren aldeko lana.*

Euskalgintza *baino lehenago euskeragintza izan zen, eta are lehenago euzkeragintza; azkeneko itxura horretantxe harrapatzen dugu aurrenekoz, Iliadaren itzulpen negargarri baten hitzaurrean (Barandiaran'dar Salbador, Ilias'ena, Gasteiz 1956).* Iñaki Segurola

Euskararen normalizazioa sustatzeko eta ***euskalgintza*** *babesteko 11 eragilek sinatutako akordioak urtea bete du.* Berria - Harian

Allande Sokarros Berriako kazetariak Zuberoako ***euskalgintza*** *eta kulturgintzaren inguruko gaietan jarri du arreta.* Berria - Kultura

Euskalgintza *sindikalgintzan txertatu.* Berria - Euskal Herria

Euskalgintza *izeneko industriaren garapenarekin, euskara eta* ***Euskalgintza*** *bat eta bera izatera etorri dira esateko moduan,* ***Euskalgintzatik*** *kanpora euskararik batere ez balego bezala.* Iñaki Segurola

Bai urrun, gerora gailenduz joango zen ***Euskalgintza*** *izeneko industriaren biktimismo esentzialetik!* Iñaki Segurola

Jardungo dugu lurralde baten (aita lurraren) kontra, lurraren eta jendeen amorez; izen zikinen kontra, ur garbiaren amorez; erdalgintza erdara-sartzaile eta ***euskalgintza*** *euskara-saltzaile eta araugilearen kontra, gure euskara honen amorez.* Iñaki Segurola

Euskalgintzak *eta euskal gizarteak une honetan duten etsairik handiena ETA dela dio manifestuak.* Joxerra Garzia

Euskalgintza *zibiko bat behar dugu. zaio aski izanen eguneroko herrigintza jardueretan leporaino sartua egotea: besta eta aste kulturalen antolaketan, dantzan,* ***euskalgintzan*** *, ikastolen sorrera eta sustapenean, eta kulturgintzan oro har.* Ana Urkiza

Aurten ere, irakasleak hautautzerakoan ***«euskalgintzan*** *diharduten hainbat alorretako jendea» bildu dute.* Berria - Kultura

Atzenaldiko ***euskalgintzan*** *sumatzen dudan hutsik nabarienetakoa, -ko horrekiko esker gaiztoa da.* Patziku Perurena

Etxetik nekarren euskaltzaletasuna sendotu zidan Patxik, ***euskalgintzara*** *bideratu ninduen.* Berria - Kultura

Izen hori Pilar Sansineneak eman zion, 36ko Gerra aurretik eta ondoren ***euskalgintzaren*** *alde lan egin zuen emakumeak.* Berria - Kirola

Ipar Euskal Herriko ***euskalgintzaren*** *azken berrogeita hamar urteeri buruzko azterketa egina du Mixel Oronos-ek.* Herria

Hori da ***euskalgintzaren*** *beste aurpegi bat.* Pello Salaburu

Urte hauetan ***Euskalgintzaren*** *eta adierazpen askatasunaren kontrako operazioak eta erasoak bultzatu ditu Madrilek, batez ere Baltasar Garzon eta Juan del Olmo epaileen eskutik.* Berria - Mundua

Hemendik aitzina haatik, ***euskalgintzaren*** *sailan, partxuergoan ariko da lanean Euskararen Erakunde Publikoarekin (GIP), larunbatean izenpetu duten hitzarmenaren arabera.* Herria

Ikastolen mugimenduak euskal kulturaren munduarekin eta ***euskalgintzarekin*** *harreman handia izan zuen Lizundiaren arabera.* Berria - Kultura

Euskalgintzari *esker euskara bizirik mantentzen dugu.* Berria - Euskal Herria

Euskalgintzarik *asaldaberarenak ere ez.* Patziku Perurena

Euskalgintzako *agenteek, gizarte eragileek eta administrazioek elkarrekin lan egin behar dutela agertu dute Larrartek, Mujikak eta Basañezek Durangon.* Berria - Euskal Herria

Gorka Torre, demo-kideen bozeramailea, baikor agertu da ibilaldi hortarik landa, ikusiz ***euskalgintzako*** *jendea mugitzen dela, bai-eta ere SNCFak euskararen alde.* Herria

Alderdi politiko, sindikata eta ***euskalgintzako*** *ordezkariak.* Herria

Euskalgintzako *elkarte eta erakundeen «bideragarritasuna eta iraunkortasuna bermatzeko konpromisoa» hartu dute Euskal Herriko hamaika alderdi politiko eta sindikatuk.Bertsozale Elkarteak harreman-bideak irekita ditu* ***euskalgintzako*** *erakundeekin, Euskal Herriko erakunde publikoekin, euskal gizarteko alderdi politiko, mugimendu eta beste eragileekin eta nazioarte mailako inprobisazio esperientzien protagonista nahiz ikerlariekin.* Berria - Euskal Herria

Alde batera utzita ***euskalgintzazko*** *zeregin soziala eta hori dena. Hamalau urtean herrigintzatik eta* ***euskalgintzatik*** *sortutako ekimena zeinen erraz deuseztu zuten!* Unai Elorriaga

· Hits, triste, gelditu zen atzo ***euskalgintza*** *Andolin Eguzkitzaren bat-bateko heriotzaren berri izandakoan.* Berria - Ekonomia

2 *(hitz elkartuetan)*

Hogoita-bat garren mendeko ***euskalgintza*** *bideak aztertuz, denbora berean Resurreccion Maria Azkueeta Julio Urkijo euskaltzain zenak omenduz.* Herria

Beharrezko gaitasunak: kartsutasuna, komunikaziorako ausartasuna, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari buruzko jakitatea, ***euskalgintza*** *mugimenduaren ezagutza sakona.* Iñaki Segurola

Hizkuntza kontseiluak bilatzen du idazkari nagusi bat, ***euskalgintza*** *ekintza batzu koordinatzeko.* Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ditu euskalgintza *(4);* ***dute euskalgintza*** *(3);* ***dute euskalgintzako*** *(3);* ***eta euskalgintza*** *(20);* ***eta euskalgintza babesteko*** *(10);* ***eta euskalgintzak*** *(6);* ***eta euskalgintzako*** *(26);* ***eta euskalgintzako eragileak*** *(3);* ***eta euskalgintzako hainbat*** *(3);* ***eta euskalgintzan*** *(4);* ***eta euskalgintzaren*** *(10);* ***euskalgintza babesteko*** *(16);* ***euskalgintza babesteko akordio*** *(7);* ***euskalgintza babesteko neurriak*** *(3);* ***euskalgintza elkarlanean*** *(17);* ***euskalgintza elkarlanean fundazioa*** *(3);* ***euskalgintza elkarlanean fundazioak*** *(8);* ***euskalgintza eta*** *(14);* ***euskalgintzak eta*** *(7);* ***euskalgintzako elkarteen*** *(3);* ***euskalgintzako eragileak*** *(6);* ***euskalgintzako eragileek*** *(4);* ***euskalgintzako erakundeek*** *(3);* ***euskalgintzako eta*** *(11);* ***euskalgintzako eta hezkuntzako*** *(6);* ***euskalgintzako gizarte*** *(4);* ***euskalgintzako gizarte eragileek*** *(3);* ***euskalgintzako hainbat*** *(9);*

euskalgintzako hainbat eragilek (4); euskalgintzan ari (3); euskalgintzan diharduten (4); euskalgintzan eta (3); euskalgintzan lanean (4); euskalgintzaren aurkako (3); euskalgintzaren aurkako erasoak (3); euskalgintzaren azken (6); euskalgintzaren azken urteei (3); euskalgintzaren eta (6); euskalgintzaren kontrako (3); euskalgintzaren lana (5); euskalgintzaren lekukoak (4); euskalgintzatik bertatik (3); euskara eta euskalgintza (3); sustatzeko eta euskalgintza (7)

---

euskalki *1 iz euskararen dialektoa.*

Euskalki eta azpieuskalkien batera, tarteko hizkerak bereiztu ditu mapan. Berria - Euskal Herria

Euskara batua eta **euskalkiak** aipatzen direnean, beti etortzen zaizkigu Bizkaia eta Zuberoa gogora, eurak izan direlako zailtasun handienak gainditu behar izan dituztenak. Koldo Zuazo

Dena den, iduritzen zaigu eskualde bakoitzeko **euskalkia** ez dela ahantzi behar. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Administrazioak ahozko harremanetan **euskalkia** erabiltzea ondo iruditzen zaigu. Berria - Euskal Herria

Euskalkiak aberasteko eta euskaldunen arteko hartu-emana errazteko. Koldo Zuazo

Euskara batua deitzen dugun hori ongi hornitu behar dugula euskal hitzak, **euskalki** batekoak nahiz bestekoak izan, baztertu gabe. Pello Salaburu

Euskalki bakoitxaren eremuan ere, euskara ez da denetan arras berdina. Herria

«Euskara batua aberastuko bada, **euskalki** guztien ekarriekin izango baita», euskaltzain osoaren irudiko. Berria - Kultura

Euskalki horren berezitasunak nola ibili beharko genituzkeen eredu estandarrean irakasteko. Pello Salaburu

Ustez neurea zen **euskalki** hartan ere, asko zegoen ikasteko. Iñigo Aranbarri

Denek badakigu gure mintzaira **euskalki** anitzetan banaturik dagoela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Era berean, euren / beren / beraien sailak hirurak dira onartu beharrekoak, bai **euskalkian** dihardugunean eta baita Euskara Batuan ere. Koldo Zuazo

Euskalkiak arautzea ez da sartzen gure lehentasunen artean. Berria - Euskal Herria

Tokian tokiko **euskalkian** egin liteke urrats hau: [...]. Koldo Zuazo

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Garaziko **euskalki** goxoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Deba ibar gehienean ere **euskalki** bera erabiltzen da. Koldo Zuazo

Gaur egun, hain zuzen, **euskalki** berean sar litezke hizkera giputzak eta Nafarroako sartaldekoak, Araitz, Larraun, Basaburua eta Imotz ibarretakoak. Koldo Zuazo

Euskalki jakin baten xehetasunak erakusteko. Pello Salaburu

Etxeko hizkeratik **euskalki** jasora iristea litzateke helburua. Koldo Zuazo

Ez da nahikoa **euskalki** bakar bat ezagutzea, eta une jakin bateko euskalkia ezagutzea ere ez da nahikoa. Koldo Zuazo

Arbideko **euskalki** tinkoa ahalik hurbilena marmaratzen saiatuz. Itxaro Borda

Aukera egin beharra zegoen: **euskalki** jakin batekoa hartu eta gainerakoak baztertu. Koldo Zuazo

Hizkuntzari berari begiratuta, badira bi **euskalki** berezi: mendebalekoa eta zuberotarra. Koldo Zuazo

Euskalki desberdinetako hitzik ezagunenak, albo-erderatatik hartu eta geurekotu ditugunak. Andoni Egaña

Erdialdeko **euskalkian** oinarritu zen eredu estandarra. Koldo Zuazo

Erdiguneko **euskalkiak** zituen gogoko, euskaldun guztiendako ulerterrazenak zirelako. Koldo Zuazo

Mendebaleko **euskalkiari** dagokionez, esate baterako, garbi dago sortaldea dela etorkizuneko ardatza. Koldo Zuazo

Arras irakur errexak, denak estilo bizi eta zalu batean idatziak dira, behenafartar **euskalkian**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

3 (hitz elkartuetan)

Fonotekak erabiltzen den **euskalki** sailkapenari dagokionez, eztabaidagarria izan daitekeela onartu zuten arduradunek. Berria - Kultura

Euskalki erregistroa erregistro sozialarekin identifikatzen da. Iñigo Aranbarri

Susmoa baino ez da, baina egunen batean hasi beharko dugu neurtzen **euskalki** marrek egiten duten kalte-ordainaren zenbatekoa.· Literatur **euskalkiak** eta herri **euskalkiak** bereizi zituen lan hartan: [...]. Iñigo Aranbarri

Literatura **euskalki** bizkaitarrak, beraz, arazoak dakartza, eta horregatik egon dira hasieratik bertatik eredu bi. Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina euskalki (3); baina euskalkiak (3); batua eta euskalkiak (3); bere euskalkia (7); bere euskalkian (6); beren euskalkian (3); bertako euskalkia (9); bertako literatura euskalkia (3); beste euskalki (3); da euskalki (5); da euskalkia (3); dela euskalkia (3); den euskalki (5); dira euskalki (3); edozein euskalki (3); erdialdeko euskalkia (4); erdialdeko euskalkian (4); ere euskalki (3); eskualdeko euskalkian (4); eskualdeko euskalkian dihardugunean (3); eta euskalki (9); eta euskalkiak (10); euren euskalkia (8); euren euskalkian (4); euskalki bakarra (3); euskalki bakoitzak (5); euskalki bakoitzak bere (3); euskalki bat (10); euskalki batean (4); euskalki bateko (3); euskalki batetik (4); euskalki batetik bestera (4); euskalki batzuek (3); euskalki batzuetako (4); euskalki batzuetako eta (3); euskalki eta (4); euskalki guztiak (10); euskalki guztien (7); euskalki guztiendako (4); euskalki guztietako (13); euskalki guztietako hitzak (3); euskalki guztietan (5); euskalki guztietara (3); euskalki honen (7); euskalki hori (3); euskalki horren (5); euskalki jakin (9); euskalki jakin bat (3); euskalkia erabili (6); euskalkia erabiltzea (7); euskalkia erabiltzeko (6); euskalkia eta (7); euskalkia ez (3); euskalkia utzi (4); euskalkiak erabiltzeko (5); euskalkiak ere (4); euskalkiak eta (12); euskalkiak eta euskara (3); euskalkiak ez (4); euskalkian dihardugunean (26); euskalkian dihardugunean ez (3); euskalkian dihardutenean (3); euskalkian edo (3); euskalkian oinarritu (4); ez den euskalki (3); hainbeste euskalki (3); literatura euskalki (5); literatura euskalkia (6); literatura euskalkiak (10); nituzke euskalkian (5); nituzke euskalkian dihardugunean (4); norbere euskalkia (5); nork bere euskalkia (3); sei euskalki (4); zen euskalkiak (3)

---

euskalkidun *izond/iz euskalkia duena.*

Zeharo bidezkoa eta zeharo beharrezkoa begitantzen zait euskalkiak babestea eta baliatzea, baina, beti ere, **euskalkidun** baino lehen euskaldun garela kontuan izanda. Koldo Zuazo

Aspaldikoa da begien aurreko zuhaitzak basoa bere osotasunean ikusten ez uztea; aspaldikoa, euskaldunak baino lehen **euskalkidunak** izatea. Koldo Zuazo

Badirudi, beraz, Arana Goiriren asmoa bete egingo dela gutxien uste genuenean: herrialde bakoitzak bere euskalkia, eta hor konpon herrialdekoak ez diren **euskalkidunak**! Koldo Zuazo

---

euskalkika *adlag euskalkien arabera.*

Euskalkika bereizi zituen, Bonaparteren sailkapena aintzakotzat hartuta, eta hauxe izan zen ondorioa (Irizar 1973: 66-67): [...]. Koldo Zuazo

---

euskalkizale *izond euskalkien zalea dena.*

Multzo horretakoen artean buru bezainbeste aburu zegoenez, **euskalkizaleen** indarrak nagusitu ziren berriro eta, lehengo lau literatura euskalkiez gainera, XIX. mendeaz gero abian zetorren bosgarrena erabat gauzatu eta gorpuztu zen: nafar-lapurtarra. Koldo Zuazo

Txosten hura irakurri eta gogoeta egin ostean, "batuzale" izatetik "batuzale" eta **"euskalkizale"** izatera aldatu nintzen. Koldo Zuazo

Aberastasun ikaragarria, **euskalkizale** sutsuen iritzian! Koldo Zuazo

---

euskaltasun *iz euskalduna –hizkuntza gorabehera– izateko nolakotasuna.*

Lehenago hil, itxuraz, bere ***euskaltasuna*** *ezertan agertzen utzi baino.* Txillardegi

Euskaltasun *idekia behar dugu atxiki euskaldunek eta ez leihoak hetsiak dituen bat, zenbaitek nahi luketen bezala.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

euskaltegi *1 iz euskara ikasteko ikastegia.*

Euskaltegiak *euskara ikasteko zentroak dira.* Berria - Euskal Herria

Halako giroa zegoen hartan sortu zen, beste toki anitzetan gertatu zen gisa, Deustuko Unibertsitatean euskara ikasteko ***euskaltegia****, eta arrakasta handia izan zuen.* Pello Salaburu

Gai horren inguruan hitz egiteko ***euskaltegiko*** *klase berezi bat antolatu zuen atzo plataformak, Gasteizen.* Berria - Euskal Herria

XX. mendearen azken aldera aldatu zen egoera: umeak eskoletan euskaraz ikasten hasi zirenean, umeen gurasoak eta jende heldua gau eskola eta ***euskaltegietan*** *euskaraz ikasten hasi zirenean, [...].* Koldo Zuazo

Zerk bultzatzen ditu orduan hogei urte pasatxoko bi kirolari profesional ***euskaltegian*** *sartzera?* Berria - Kirola

Igandeko finalistek hiru urte daramatzate elkarrekin euskara ikasten Iruñeko Iruñazar ***euskaltegian****.* Berria - Kirola

Matrikulazioen beherakada eten egin da ***euskaltegietan****.* Berria - Euskal Herria

Ez nintzen inongo ***euskaltegitara*** *ez gau-eskolatara joan, harrokeriaz baino gehiago alferkeriaz.* Xabier Mendiguren Elizegi

Abertzaleen esku zeuden, oro har, euskal dantza taldeak, ***euskaltegiak****, eta Elizaren inguruko hainbat eta hainbat jende, apaiz "kontzientziatuen" gidaritzapean.* Juan Kruz Igerabide

Hainbat ***euskaltegi*** *biltzen hasi ziren Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen etorkizunaz hausnarketa komuna egiteko asmoz.* Berria - Euskal Herria

Euskaltegi *batean klaseak ematen hasi nintzen.* Javi Cillero

Orain dela 25-30 bat urte herri hau euskaltzaletasunak bete-betean jo zuenean, ***euskaltegiak*** *han-hemenka hasi ziren hazten.* Pello Salaburu

Euskaltegien *bideragarritasuna ez dago bermatuta.* Berria - Euskal Herria

Euskara maila egiaztatzen duten EAE Euskal Autonomia Erkidegoko ***euskaltegietako*** *ikasle guztiek matrikularen erdia berreskura dezakete.* Berria - Euskal Herria

Euskaltegiko *kurtsoak utzi zenituenez geroztik, ez duzu aukera handirik ukan euskaraz irakurtzeko.* Ramuntxo Etxeberri

Herri ekimeneko ***euskaltegietan****.* Berria - Euskal Herria

Euskaltegietako *irakasleek lan-baldintza duinak eskatu dituzte.* Berria - Harian

Erandioko ***euskaltegiko*** *ikaslea naiz.* Joxean Sagaztizabal

2 (izenondoekin)

Euskaltegi *homologatuek planto egin diote Eusko Jaurlaritzari.* Berria - Harian

'Euskaltegi *pribatuen finantzaketarako irizpide nagusiak' aurkeztu zizkieten.* Berria - Harian

Euskaltegi *pribatu homologatuen %85 ordezkatzen dituen taldeak urte osoa egin du Administrazioarekin helduen euskalduntze-alfabetatzearen bideragarritasuna bermatuko duen akordioaren bila.* Berria - Euskal Herria

Euskaltegi *estandar baten kostu azterketa eta lanpostuen eginkizunak (irailean Sareak aurkeztutakoak) aurkeztu zituen HABEk.* Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan)

IKA ***euskaltegi*** *sareak 15. urtemuga ospatuko du ikasturte honetan, Gasteizen bertako arduradunek atzo jakinarazi zutenaren arabera.* Berria - Euskal Herria

Nork esango zuen gela kaxkar haietan eta baliabide urri haiekin abian jarri ziren gaueskoletatik gaur egungo ***euskaltegi*** *sarera iritsi behar genuena!* Koldo Zuazo

Euskaltegi *talde horren izenean hitz egin du Mertxe Mujika AEK-ko Nazio Batzordeko kideak.* Berria - Euskal Herria

· Araban egin du gora, Gasteizen batez ere, eta sare guztietan; baita Bilbo metropolitanoan ere, ezker-eskuinaldeko udal ***euskaltegietan****.* Berria - Euskal Herria

Zarauzko udal ***euskaltegiak*** *bidean ezarri ditu, martxoaz geroz, euskarazko ikastaldiak herriko etorkinentzat.* Herria

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***ditu euskaltegiak*** *(3);* ***ditu euskaltegiak*** *(3);* ***dute euskaltegiek*** *(3);* ***euskal herriko euskaltegietan*** *(3);* ***euskaltegi batean*** *(6);* ***euskaltegi eta*** *(3);* ***euskaltegi homologatuek*** *(3);* ***euskaltegi homologatuen*** *(3);* ***euskaltegi pribatuek*** *(3);* ***euskaltegiak eta*** *(3);* ***euskaltegiak eta*** *(3);* ***euskaltegiak ez*** *(5);* ***euskaltegiak ez*** *(5);* ***euskaltegiak ez ito*** *(5);* ***euskaltegiak ez ito*** *(5);* ***euskaltegiek eta*** *(4);* ***euskaltegien bideragarritasuna*** *(3);* ***euskaltegietako ikasleen*** *(3);* ***euskaltegietako irakasleek*** *(7);* ***herriko euskaltegietan*** *(3);* ***ika euskaltegiko*** *(3);* ***udal euskaltegiak*** *(3);* ***udal euskaltegiak*** *(3);* ***udal euskaltegiek*** *(6);* ***udal euskaltegiko*** *(4);* ***zuten euskaltegiek*** *(5)*

---

euskaltzain *1 iz Euskaltzaindiko kidea.*

Orain da, lehenbiziko aldikotz, emazte bat ***euskaltzain****.* Menane Oxandabaratz

Amonak ez zuen kultura handirik, baina horrela hitz egiten zuenean, ***euskaltzain*** *bat zirudien.* Joan Mari Irigoien

Ez du balio hemen goiti eta beheiti omenka eta omenez ibiltzea, Euskaltzaindiak eta ***euskaltzainek*** *hau edo hura esan edo egin dutelakoa-edo arinki baieztatzen ibiltzea.* Pello Salaburu

Arturo Campion eta Pierre Broussain ***euskaltzainek*** *hartu zuten batasunaren egitasmoa gertatzeko ardura.* Koldo Zuazo

Euskaltzain *eta filologoen etsaiak gara gu // Guretzako hitzak ez dira apaletan altxatzeko hartxuriak // Geure hatsez edo herdez zikindutako kristal biziak baizik.* Patziku Perurena

Egunkarietako argazkien bidez ondo ezagutzen zuenez, eta bazekienez gizon huraxe zela ***euskaltzainen*** *burua, Jean Haritxelharren sorbalda ukitzera ausartu zen.* Juan Luis Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Euskaltzaindiak ***euskaltzain*** *oso izendatu zuen 1949an.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Euskaltzaindiako Literatura Ikerketa batzordekidea da 1990 urteaz geroztik, eta 2003an ***euskaltzain*** *urgazle izendatu zuten.* Ana Urkiza

2001ko maiatzean 100 urte egin zuen Piarres Lafitte ***euskaltzain*** *ospetsua Luhoson sortu zela.* Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Horixe da, era berean, ***euskaltzain*** *jakin batek esandakoa gorabehera, Euskaltzaindiak berak dioena.* Koldo Zuazo

Euskaltzain *adinduak dolorezko auhen luzea hegaldarazi zuen.* Itxaro Borda

Bi ohorezko ***euskaltzain*** *berrikitan itzaliak omenduak izan dira: Martin Ugaldeidazle ezagutua, sortzez andoaindarra, eta Augustin Zubikarai bizkaitarra.* Herria

Eguzkitza, Ezkerraldeko lehenbiziko ***euskaltzaina****.* Pello Salaburu

3 (hitz elkartuetan)

Filologo- ***euskaltzainek****, euskara ito nahi dugu, nonbait.* Pello Salaburu

> ***hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)***
>
> ***ana toledo euskaltzainek*** *(3);* ***andolin eguzkitza euskaltzain*** *(5);* ***andolin eguzkitza euskaltzaina*** *(3);* ***andres urrutia euskaltzainak*** *(4);* ***atxaga euskaltzain*** *(4);* ***bere euskaltzain*** *(3);* ***bere euskaltzain mailan*** *(3);* ***charritton euskaltzaina*** *(3);* ***charritton euskaltzainak*** *(9);* ***davant euskaltzaina*** *(4);* ***davant euskaltzainak*** *(10);* ***davant xuberotar euskaltzainak*** *(3);* ***dituzte euskaltzainek*** *(3);* ***du euskaltzain*** *(4);* ***dute euskaltzain*** *(4);* ***dute euskaltzain berria*** *(3);* ***eguzkitza euskaltzain*** *(5);* ***eguzkitza euskaltzaina*** *(3);* ***eta euskaltzain*** *(27);* ***eta euskaltzain oso*** *(7);* ***eta euskaltzain urgazle*** *(3);* ***eta euskaltzaina*** *(9);* ***eta euskaltzainak*** *(3);* ***eta euskaltzainaren*** *(3);* ***eta euskaltzainari*** *(3);* ***euskaltzain batek*** *(5);* ***euskaltzain berria*** *(5);* ***euskaltzain berriak*** *(3);* ***euskaltzain buru*** *(3);* ***euskaltzain ere*** *(4);* ***euskaltzain eta*** *(15);* ***euskaltzain eta idazle*** *(3);* ***euskaltzain izateko*** *(4);* ***euskaltzain izendatu*** *(6);* ***euskaltzain izendatu zuten*** *(3);* ***euskaltzain izendatzea*** *(3);* ***euskaltzain mailan*** *(4);* ***euskaltzain mailan aldaketarik*** *(4);* ***euskaltzain ohorezko*** *(7);* ***euskaltzain ohorezkoa*** *(4);* ***euskaltzain ohorezkoaren*** *(3);* ***euskaltzain oso*** *(58);* ***euskaltzain oso egiten*** *(3);* ***euskaltzain oso eta*** *(5);* ***euskaltzain oso gisa*** *(3);* ***euskaltzain oso izan*** *(3);* ***euskaltzain oso izendatu*** *(9);* ***euskaltzain osoa*** *(12);* ***euskaltzain osoak*** *(5);* ***euskaltzain osoaren*** *(3);* ***euskaltzain osoek*** *(4);* ***euskaltzain osoen*** *(5);* ***euskaltzain urgazle*** *(29);* ***euskaltzain urgazle ere*** *(3);* ***euskaltzain urgazle izendatu*** *(7);* ***euskaltzain urgazle zen*** *(3);* ***euskaltzain urgazlea*** *(8);* ***euskaltzain zena*** *(4);* ***euskaltzain zenak*** *(3);* ***euskaltzain zenaren*** *(4);* ***euskaltzain zendu*** *(4);* ***euskaltzaina eta*** *(11);* ***euskaltzaina zendu*** *(4);* ***euskaltzaina zendu da*** *(4);* ***euskaltzainak bere*** *(3);* ***euskaltzainak eta*** *(6);* ***euskaltzaindiak euskaltzain*** *(4);* ***euskaltzaindiak euskaltzain urgazle*** *(3);* ***euskaltzainen***

artean (3); **hizkuntzalari eta euskaltzain** (6); **idazle eta euskaltzain** (7); **idazle eta euskaltzaina** (8); **iparraldeko euskaltzain** (3); **irizar euskaltzain** (3); **izan zen euskaltzain** (3); **izendatu zuen euskaltzain** (3); **lafitte euskaltzain** (4); **lafitte euskaltzain zena** (3); **lizundia euskaltzain** (6); **lizundia euskaltzain oso** (3); **louis davant euskaltzaina** (4); **louis davant euskaltzainak** (10); **luis lizundia euskaltzain** (6); **mikel zalbide euskaltzain** (3); **ohorezko euskaltzain** (18); **ohorezko euskaltzain izendatu** (4); **ohorezko euskaltzain izendatzea** (3); **onartu ohorezko euskaltzain** (3); **piarres charritton euskaltzaina** (3); **piarres charritton euskaltzainak** (9); **piarres lafitte euskaltzain** (4); **piarres xarriton euskaltzainak** (3); **satrustegi euskaltzainak** (3); **urrutia euskaltzainak** (4); **xarriton euskaltzainak** (4); **xuberotar euskaltzainak** (3); **zalbide euskaltzain** (3); **zen euskaltzain** (5); **zuen euskaltzain** (6); **zuten euskaltzain** (4); **zuten euskaltzainek** (3)

---

euskaltzainburu *(orobat **euskaltzain buru** g.er.) iz Euskaltzaindiko burua.*

*Frankismopean, halere, hasierarik **euskaltzainburu** zen Azkueren itzalean, Federiko Krutwigek (1921-1998) irauli zuen ordu arteko euskal pentsaera.* Askoren artean

*Huna nola osatua den gaur Euskaltzaindiaren zuzendaritza: **euskaltzainburu** Jean Haritschelhar, buruorde Henrike Knörr, idazkari Xabier Kintana, diruzain Jose Luis Lizundia, Iker sailburua Beñat Oihartzabal, Jagon sailburua Andres Urrutia.* Herria

*Luis Villasante aukeratu zuten **euskaltzainburu** 1970ean. Egun hartan Piarres Lafitte-k eman zuen meza omendua zenaren fagoretan Auritzeko elizan, beste zenbait apezekin, haien artean Jerónimo, Ferminen beste seme bat, eta Aita Villasante, garai hartako **Euskaltzainburua**, orain berriki hil izan dena.* Koldo Zuazo

*Zertan giren ikusiz zeri buruz goatzin hobeki ikertu nahiz eta gisa hartako gogoetaldia eginez, Jean Haritschelhar **euskaltzainburuak** azpimarratu duen bezala.* Herria

*Onésime Reclus, Orthezeko geografo ezagunak 1887an argitaratu zuen La France et ses colonies liburutik hartzen zituen **euskaltzainburuak** lerro hauek: Les escualdunacs, petit peuple, le basque, petite langue, sont voués à la mort.* Piarres Xarriton

***Euskaltzainburuetan** seigarrena, Iparraldeko lehena.* Herria

*Hamasei urte egin ditut **euskaltzainburu**.* Berria - Kultura

***Euskaltzainburu** berria hautatuko dute datorren astean.* Berria - Kultura

*Luis Villasante **Euskaltzain buru** ohia lehenik eta, orain, Bitoriano Gandiaga.* Herria

*«Euskaltzaindiak hartarakoena zirudienari, hots, Koldo Mitxelena jaunari, egotzi zion bigarren edizio gaurkotua eta osatua prestatzeko ardura», Luis Villasante **euskaltzainburu** zenak OEHren lehen liburukiaren hitzaurrean idatzi zuenez.* Berria - Harian

*Aita Villasante orduko **Euskaltzainburua**.* Herria

*Iratxek, hainbat urtetan **euskaltzainburu** izandakoak Arkaitzi eman zion erreleboa.* Berria - Kultura

*Enrique Knörr **euskaltzainburu**-ordezkoak eta Arantxa Irigoyen-ek.* Herria

*Jose Maria Lojendio, hau ere Gipuzkoarra, bi urtez egon zena bakarrik **euskaltzainburu** karguarekin.* Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andres urrutia euskaltzainburu (3); **andres urrutia euskaltzainburua** (8); **andres urrutia euskaltzainburuak** (9); **euskaltzainburu berria** (4); **euskaltzainburu ohia** (11); **euskaltzainburu ohiari** (3); **euskaltzainburu ordea** (3); **euskaltzainburua eta** (3); **euskaltzainburuaren inguruan** (3); **haritschelhar euskaltzainburu** (7); **haritschelhar euskaltzainburu ohiari** (3); **haritschelhar euskaltzainburua** (8); **haritschelhar euskaltzainburuak** (16); **haritschelhar euskaltzainburuaren** (5); **haritschelhar euskaltzainburuaren inguruan** (3); **haritxelhar euskaltzainburu** (6); **haritxelhar euskaltzainburu ohia** (6); **haritxelhar euskaltzainburua** (3); **haritxelhar euskaltzainburuak** (6); **jean haritschelhar euskaltzainburu** (7); **jean haritschelhar euskaltzainburua** (7); **jean haritschelhar euskaltzainburuak** (16); **jean haritschelhar euskaltzainburuaren** (5); **jean haritxelhar euskaltzainburu** (6); **jean haritxelhar euskaltzainburua** (3); **jean haritxelhar euskaltzainburuak** (6); **urrutia euskaltzainburu** (3); **urrutia euskaltzainburua** (8); **urrutia euskaltzainburuak** (9)

---

euskaltzainburuorde *(orobat **euskaltzainburu orde** eta **euskaltzain buru orde**) iz Euskaltzainburuaren hurrengoa, zenbait eginkizunetan haren ordez aritzen dena.*

*1988an, **euskaltzainburuorde** izendatu zuten, baina kargua hurrengo urtean utzi zuen, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko egin zutenean.* Berria - Kultura

*Euskaltzaindian, berriz, euskaltzain oso izatetik, **euskaltzainburuorde** izatera igaro zen 1966an, eta 22 urtera euskaltzainburu izendatu zuten.* Berria - Kultura

*Loiolan izan ziren besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainburua, Beñat Oihartzabal **euskaltzainburuordea**, Jean Haritxelhar euskaltzainburu ohia, Henrike Knorr, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia eta Ana Toledo euskaltzainak, Patxi Zabaleta euskaltzain eta idazlea eta Lourdes Oñederra euskaltzain urgazlea.* Berria - Kultura

*Euskaltzaindian **euskaltzainburu-orde** gisa 1989tik 1996a arte lan benetan bikaina egin zuen.* Berria - Harian

*1962an euskaltzain oso izendatu zuten, eta urte askoan **euskaltzain buru orde** izan ondoren, 1988an euskaltzainburu hautatu zuten.* Berria - Kultura

---

euskaltzainkide *iz euskaltzain batentzat, beste euskaltzain bat.*

*Irakasle izan nuen, lankide, **euskaltzainkide**.* Berria - Kultura

*Hor baitzen gure **euskaltzainkide** Karmelo Etxenagusia Bilboko Apezpiku-lagun Durangoarra, adiskide eta fedekide batzuek adierazi diogu honi, menturaz delako azterketaren argitaratzeak emanen diela Euskal bost diosesien arduradunei, elkarrekin sail berri bati denak batean lotzeko asmoa.Baina guk ere, zure diosesiako euskaldun batzuek, gure **euskaltzainkide** Juan Mari Lekuona hain maitagarria galdu berri dugunek bereziki ez dugu oraino ahantzia haren osaba ona, Martin Lekuona apeza fusilatu zutela beste euskaldun apez batzu bezala, Espainol kurutzedunek Hernaniko hilerrietan.* Herria

---

euskaltzale *(orobat **euskalzale** g.er.) **1** izond euskararen zalea dena, euskararekiko atxikimendua erakusten duena.*

*Familia **euskaltzaleko** semea zen.* Berria - Kultura

*Familia **euskaltzale** hori aldi berean euskalduna baldin bada, ostera, aukera bat baino gehiago dugu.* Pello Salaburu

*Zu bezalako gazte **euskaltzaleak** eta euskara jakinki ez?* Pello Salaburu

*Horregatik ere, besteak beste, haren leinukoa zen Joan Perez jaun **euskaltzaleak** idatzi zuen Genealogia bat argi eta garbi erakusteko ezkontza tamalgarri baten ondorioz bazela Lazarragatarren artean leinuadar bat juduekin batua edo zikindua.* Berria - Kultura

*Barandiaran ados da sortzen denaren berri eman behar zaiela «babes geruza» osatzen duten erdaldun **euskaltzaleei**, baina, bere ustez, «txikitasunak ez du eskastasuna esan nahi».* Berria - Kultura

*Euskara babesteko deia egin du talde **euskaltzaleak**, ehunka lagunen aurrean, Tolosako Leidorren.* Berria - Euskal Herria

*Ehunka lagun bildu ziren atzo arratsaldean Tolosako Leidor zinemara (Gipuzkoa), Euskal Herrian Euskaraz erakunde **euskaltzaleak** antolatutako Atzo, gaur eta bihar, euskaraz! ekitaldira.* Berria - Ekonomia

*Kardaberazek erlijioa mintzagai izan ez zuen liburu bakarra izan zen Eusqueraren berri onac, «bere alderdirik **euskaltzaleena**» agerian utzi zuena, Zulaikaren iritziz.* Berria - Kultura

*Unibertsitateko sektore **euskaltzaleak**, abertzaleak, ezkertiarrak eta aurrerakoiak bildu nahi ditu.* Berria - Euskal Herria

*Joera **euskaltzale** berri baten sorrera.* Berria - Euskal Herria

*Hain **euskaltzaleak** izaki, zer dela-eta egiten duzue, euskaldun peto zareten horiek, horrenbeste aldiz erdaraz zuen artean?* Pello Salaburu

*Jakina, zure baitan, arras **euskaltzalea** bazara, egingo duzu: eta ez bada ikaslibururik, zergatik ez dira egiten, zergatik ez itzultzen?* Pello Salaburu

*Ni ez naiz **euskaltzale** bihurtu politikoki abertzalea naizelako, baizik eta alderantziz; ni **euskaltzale** nintzen, eta **euskaltzale** izateak logikaz eraman nau planteamendu politiko abertzaleetara.* Berria - Kultura

*Gure burua **euskaltzaletzat** hartzen dugunoi ez digu inork ere baimenik eman behar hemen bizitzeko, euskal etxean bizitzeko.* Pello Salaburu

*Eremu **euskaltzalea** anitz zabaldu da.* Berria - Euskal Herria

***2** (izen gisa)*

Har ditzagun ***euskaltzaleak****, gaur egunekoak zehazkiago, hots, "euskalgintza" edo "euskararen mundua" (ex-unibertsoa), hau da, euskararen gainean eraikitako industria euskararekin berarekin nahasten dutenak.* Iñaki Segurola

Gaztedanik etorri zaizkit bada, XIX. mendetik XX. menderateko bihurgunean, eliza dorrearen azpian alha ziren errepublikazaleen eta erregezaleen arteko liskarren oihartzunak, edo gutartean zebiltzan frantseszaleen eta ***euskaltzaleen*** *eztabaidak.* Piarres Xarriton

Ehunka ***euskaltzale*** *bildu ziren atzo Gernikan eta Bergaran izandako manifestazioetan.* Berria - Euskal Herria

Euskaltzaindiak beti izan du itzal akademikoa eta errespetua ***euskaltzaleen*** *artean eta* ***euskaltzale*** *gehienek hartu izan dute erreferentzia puntu gisa euskal araugintzan, esana da hori.* Pello Salaburu

Oso argi dut gure kulturaren parte handi bat "Espainia" deitzen dugun hortik datorkigula, nola Baionan bizi den euskaldun eta ***euskaltzale*** *bati bere kulturaren zati bat, txikia ez dena, Frantziatik heldu zaion.* Pello Salaburu

Gaurko ***euskaltzaleek*** *bere buruarentzat maiteena duten kontsigna, bat aukeratu behar eta, "euskaraz bizi" delako hori dela esango nuke, duda gutxirekin.* Iñaki Segurola

Orain ez bezala, orduan ***euskaltzaleen*** *artean erdaraz egitea bekatu larria zen gero!* Pello Salaburu

Telesforo Monzonen mendeurrena dela aurten, ***Euskaltzaleen*** *Biltzarrak Lapurdi eta Baxenabarre aldeko euskaldun ikasle eta langile gazte guztiei dei egiten die Monzonen antzerki ezagunetariko baten muntatzeko.* Berria - Kultura

3 *(izen gisa izenondo eta izenlagunekin)*

Patxi Altunaren joanarekin ***euskaltzale*** *handi bat galdu dugu, euskararen inguruko gaietan espezialista on bat, filologo klasiko bat.* Berria - Kultura

Horren ***euskaltzale*** *sutsua, erradikala izanik, eta bere ideia politikoak ezagututa, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politika txalotzekoa zela esaten zuen.1900ean, Pariseko Erakusketa Unibertsalaren karietara,* ***euskaltzale*** *gorri edo xuri multzo batek asmatu zuen Victor Hugok Populu xarmant eta apur bat basaren fama eman zion Euskal Herriari erakustoki xume baten eskaintzea.* Berria - Kultura

Omenaldi xume baina hunkigarria egin nahi diote Manuel Larramendi Bazkunak eta Andoaingo Udalak bertako seme kutun Martin Ugalde Orradre ***euskaltzale*** *zendu berriari.* Berria - Kultura

Durango ***euskaltzale*** *ugariren Meka bilakatzen da egutegiak Hegoaldera ekarri dituen jaiegun hauetan.* Berria - Kultura

«Nola eska dakioke errusiera eskolak ematen dituen irakasle bati bigarren hizkuntza eskakizuna?», galdetu dute sindikatuek, eskaera hori egitea muturreko ***euskaltzale*** *batzuen gutizia zerutiarra bailitzan.* Berria - Euskal Herria

Izpurar ***euskaltzale*** *hori independente gisa aurkeztu zen duela sei urte.* Berria - Euskal Herria

4 *(izen gisa hitz elkartuetan)*

Etsaiak zer erranen du ezkerretik eskuinerako ***euskaltzale*** *sensibilitate ezberdinak biltzen badin badira?* Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bagera donostiako euskaltzaleen *(4);* ***beste euskaltzale*** *(4);* ***dira euskaltzale*** *(3);* ***dira euskaltzaleak*** *(3);* ***donostiako euskaltzaleen*** *(6);* ***du erakunde euskaltzaleak*** *(3);* ***du talde euskaltzaleak*** *(3);* ***ehunka euskaltzale*** *(3);* ***erakunde euskaltzaleak*** *(6);* ***erakunde euskaltzalearen*** *(3);* ***eta euskaltzale*** *(28);* ***eta euskaltzale handia*** *(3);* ***eta euskaltzalea*** *(13);* ***eta euskaltzaleak*** *(10);* ***eta euskaltzaleen*** *(15);* ***euskaldun eta euskaltzale*** *(3);* ***euskaltzale ainitz*** *(3);* ***euskaltzale batek*** *(5);* ***euskaltzale bati*** *(4);* ***euskaltzale bildu*** *(4);* ***euskaltzale eta*** *(30);* ***euskaltzale gehiago*** *(3);* ***euskaltzale gehienek*** *(3);* ***euskaltzale guziak*** *(8);* ***euskaltzale guziak gomitatzen*** *(3);* ***euskaltzale guztiak*** *(3);* ***euskaltzale guztiei*** *(6);* ***euskaltzale handia*** *(3);* ***euskaltzale izatea*** *(3);* ***euskaltzale suharra*** *(5);* ***euskaltzale sutsua*** *(3);* ***euskaltzalea eta*** *(7);* ***euskaltzalea eta abertzalea*** *(4);* ***euskaltzaleak eta*** *(9);* ***euskaltzaleak izan*** *(4);* ***euskaltzalearen ustez*** *(3);* ***euskaltzaleen artean*** *(6);* ***euskaltzaleen biltzarra*** *(12);* ***euskaltzaleen biltzarra elkartearen*** *(3);* ***euskaltzaleen biltzarrak*** *(10);* ***euskaltzaleen biltzarraren*** *(10);* ***euskaltzaleen biltzarreko*** *(10);* ***euskaltzaleen biltzarreko lehendakaria*** *(5);* ***euskaltzaleon artean*** *(3);* ***hainbat euskaltzale*** *(3);* ***hainbat euskaltzalek*** *(4);* ***idazle eta euskaltzaleen*** *(3);* ***kazetari eta euskaltzale*** *(3);* ***talde euskaltzaleak*** *(9);* ***talde euskaltzalearen*** *(5);* ***zuten euskaltzale*** *(3)*

---

euskaltzalego *iz euskaltzaleen multzoa.*

Aita VILLASANTE eta LAFITTE, biak beti lehengo apez guziek bezalako soinekoetan, dauzkat gure ***euskaltzalegoan*** *fede emaile izan zirela.* Herria

Irabazten den pundu hori, ene ustez, irabazten da bakarrik ***euskaltzalegoaren*** *indarraren arabera: indarra handiago eta gehixago irabazten da; gutiago eta gutixago.* Herria

Ez dela ezer geratzen bi atxiloketaldien inguruan ***euskaltzalegoaren*** *baitan eragindako sukar sozialetik; aspaldi itzali zela Donostiako manifestazio erraldoien oihartzuna.* Berria - Euskal Herria

---

euskaltzaletasun *(orobat* ***euskalzaletasun*** *g.er.) iz euskaltzalearen nolakotasuna, euskararekiko atxikimendu eta zaletasuna.*

Euskaltzaleen Biltzarreko Piarres Aintziart eta Euskalerriaren Adiskideen elkarteko Jose Maria Urkiak hitzaldi bana dute eskaini, euskara eta ***euskaltzaletasuna*** *goraipatuz.* Herria

Demagun ***euskaltzaletasuna*** *: liburua argitaratu zen garaiko (1925) euskaltasun aberkoia eta Europako mugimendu nazionalistak ditu iturri.* Anjel Lertxundi

Bernat Etxepare katolikoari kontrajartzen badiogu Joanes Leizarragako lapurtar protestantea, konturatzen gara, ***euskaltzaletasunaren*** *aldetik, ez dietela zorrik nafartarraren neurtitzei, lapurtarraren lerro hauek: Alabaina segur izanez ezen Heuskaldunak berze nazione guzien artean ez garela hain basa, non gure lengoaiez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Jauna.* Piarres Xarriton

Orain dela 25-30 bat urte herri hau ***euskaltzaletasunak*** *bete-betean jo zuenean, euskaltegiak han-hemenka hasi ziren hazten.* Pello Salaburu

Euskararen desideologizazioak, ordea, beldurtu egiten du Saizarbitoria, ***euskaltzaletasuna*** *ahul bailezake.* Markos Zapiain

Han hitzaldiak ematen eta gazteen artean ***euskaltzaletasuna*** *pizteko ahaleginak egiten jarraitu zuen, baina oihartzun handirik lortu gabe.* Berria - Harian

Beste gauza bat da ***euskaltzaletasuna*** *: badu erlijiotik puskat eta ekonomia ere bada beste puskat (gaur egunean batik bat), eta jainko-idoloak eta dirua, edo bortxaz maitatzen dira, edo ezin iritsizko beste zerbaiten sublimagarri gisa maitatzen dira.* Iñaki Segurola

Guretzat, euskara ardatza da, eta abertzaletasuna eta ***euskaltzaletasuna*** *bereizi egin beharko litzateke, eta baita muga politiko eta kulturalak ere.* Berria - Kultura

Arrazoi politikoak dira kasu horretan, ***euskaltzaletasuna*** *abertzaletasunarekin berdintzen baitute bere burua abertzaletzat ez duten agintari politikoek.* Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Euskaltzaletasun *hutsak ala euskara erabiltzearen abantaila komertzialak?* Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta euskaltzaletasuna *(6);* ***euskaltzaletasuna eta*** *(5)*

---

euskalzale ik ***euskaltzale****.*

---

euskalzaletasun ik ***euskaltzaletasun****.*

---

euskalzulo *iz adkor amazulo-ren erara sorturiko hitza.*

Izan nintekeen egitezko euskalduna, baina ez: nahiago dut, horretara jarri ezkero, "euskarazko tipo bat" naizela esatea (eta ***"euskalzulo"*** *xamarra gainera), eta ez besterik, ez gehiagorik.* Iñaki Segurola

euskañol (orobat **euskaiñol** g.er.) iz adkor espainolak nabarmen kutsaturiko euskara.

Euskalgaiztoa, orain zenbaitek **"euskañola"** deitzen duena, entzuten da sarriegi Euskal Telebistan. Koldo Zuazo

Argotera heltzeko, beharrezkoa da espresibitatean irabaztea, gaztelerarik gabe ezin uler daitekeen **euskañolari** gain hartzea... baina ez dirudi borondate handirik dagoenik. Iñigo Aranbarri

Ikusia nagok ni, Miramar jauregian, kritikari **euskañol** katedradunak Bidasoaz haranzko poesia trufaz goroztzat jotzen. Patziku Perurena

Ez da gero harrigarri, Perurenaren berreskuratze erromantiko hori Euskal Herri urbanoenean gailendu izana [...] hain zuzen ere berak gogorren salatzen duen "gehiengo **euskañol** dekoratibo" horrengan apika. Patziku Perurena

---

euskara (ETCn **265.586** agerraldi; orobat **euskera** ETCn **3.772** agerraldi) iz Euskal Herrian mintzatzen den hizkuntza. (ikus beheko konbinatorian euskara hitzaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

bada euskara (9); **baina euskara** (35); **baita euskara** (17); **bat euskara** (17); **bere euskara** (17); **bidez euskara** (9); **da euskara** (140); **da euskara batua** (11); **dago euskara** (13); **dela euskara** (23); **den euskara** (25); **dira euskara** (28); **du euskara** (80); **duela euskara** (12); **duen euskara** (16); **dugu euskara** (25); **dugun euskara** (8); **dute euskara** (52); **dutela euskara** (20); **duten euskara** (12); **edo euskara** (15); **ere euskara** (56); **eskoletan euskara** (8); **eta euskara** (374); **eta euskara batua** (13); **eta euskara eta** (9); **eta euskara ez** (10); **eta euskara kultur** (10); **etxeko euskara** (13); **euskal herrian euskara** (8)

euskara baino (13); **euskara batu** (39); **euskara batua** (180); **euskara batua eta** (12); **euskara batua ez** (11); **euskara batua sortu** (8); **euskara batuak** (30); **euskara batuan** (65); **euskara batuaren** (91); **euskara batuari** (17); **euskara batuaz** (8); **euskara batuko** (10); **euskara baturako** (15); **euskara baztertu** (9); **euskara behar** (13); **euskara bera** (47); **euskara bere** (10); **euskara beste** (9); **euskara beti** (8); **euskara bezalako** (10); **euskara bigarren** (10); **euskara bizi** (27); **euskara bizi publikoan** (12); **euskara biziberritzeko** (21); **euskara biziberritzeko plan** (15); **euskara bizirik** (10); **euskara bultzatzeko** (12); **euskara da** (32); **euskara dakiten** (11); **euskara dela** (20); **euskara edo** (16); **euskara elkartea** (9); **euskara elkarteak** (19); **euskara elkarteek** (9); **euskara elkarteen** (27); **euskara elkarteen federazioak** (14); **euskara elkarteko** (8); **euskara erabat** (8); **euskara erabili** (23); **euskara erabili nahi** (9); **euskara erabiltzea** (14); **euskara erabiltzeko** (35); **euskara erabiltzeko eskubidea** (8); **euskara erabiltzen** (26); **euskara erakunde** (10); **euskara ere** (44); **euskara errektoreordea** (14); **euskara eskolak** (11); **euskara eta** (322); **euskara eta euskal** (86); **euskara eta frantsesa** (17); **euskara eta frantsesaren** (8); **euskara eta gaztelania** (16); **euskara eta kultura** (11); **euskara europako** (14); **euskara euskal** (13); **euskara euskara** (8); **euskara euskararen** (8); **euskara ez** (131); **euskara ez da** (29); **euskara ez dakiten** (8); **euskara ez dakitenak** (8); **euskara ez dela** (18); **euskara ezagutzeko** (14); **euskara ezagutzeko eskubidea** (9); **euskara frantsesa** (15); **euskara garatzeko** (8); **euskara garbia** (13); **euskara garbian** (23); **euskara gehiago** (23); **euskara gero** (15); **euskara gero eta** (12); **euskara giputza** (27); **euskara giputzaren** (27); **euskara giputzean** (12); **euskara gure** (17); **euskara hau** (9); **euskara herriko** (19); **euskara herriko etxeetan** (12); **euskara hizkuntz** (9); **euskara hizkuntza** (53); **euskara hizkuntza politikarako** (12); **euskara hori** (11); **euskara hutsean** (66); **euskara hutsez** (23); **euskara hutsezko** (34); **euskara ikas** (9); **euskara ikasi** (74); **euskara ikasi edo** (8); **euskara ikasi eta** (8); **euskara ikasi nahi** (12); **euskara ikasiko** (13); **euskara ikastea** (35); **euskara ikasteari** (8); **euskara ikasteko** (116); **euskara ikasteko aukera** (9); **euskara ikasten** (133); **euskara ikasten ari** (36); **euskara ikasten hasi** (12); **euskara ikastera** (10); **euskara irakasteko** (16); **euskara irakasten** (16); **euskara izan** (17); **euskara jakin** (16); **euskara jakitea** (30); **euskara jakiteko** (11); **euskara konprenitzen** (8); **euskara kontuetan** (9); **euskara kultur** (47); **euskara kultur elkargoak** (24); **euskara kultur elkargoko** (16); **euskara lan** (24); **euskara lan tresna** (10); **euskara maila** (32); **euskara maite** (19); **euskara menperatu** (9); **euskara menperatzen** (8); **euskara mintzatzen** (9); **euskara nafarreko** (8); **euskara nafarroako** (8); **euskara nafarroan** (9); **euskara normalizatzeko** (18); **euskara ofiziala** (16); **euskara ongi** (13); **euskara oso** (11); **euskara plana** (11); **euskara sustatzeko** (69); **euskara sustatzeko eta** (8); **euskara taldeak** (11); **euskara teknikaria** (9); **euskara ulertzen** (11); **euskara zen** (9)

aise eutsi (6); **aldeari eutsi** (25); **aldeari eutsi zion** (6); **algarari eutsi** (6); **arazorik gabe eutsi** (16); **arnasari eutsi** (47); **arnasari eutsi nion** (6); **arnasari eutsi zion** (15); **arnasari eutsi zioten** (8); **arte eutsi** (43); **arte eutsi zion** (11); **artean eutsi** (6); **aukerari eutsi** (7); **baina eutsi** (26); **baina eutsi egin** (19); **bakarrik eutsi** (16); **barreari eutsi** (26); **barreari eutsi ezinik** (8); **batean eutsi** (6); **batek eutsi** (11); **batek eutsi zion** (8); **bati eutsi** (24); **begiradari eutsi** (18); **begiradari eutsi nion** (6); **berari eutsi** (14); **berari eutsi zion** (6); **bere buruari eutsi** (21); **bereari eutsi** (34); **bereari eutsi zion** (18); **bezala eutsi** (6); **bide horri eutsi** (9); **bideari eutsi** (25); **bideari eutsi zion** (7); **bikain eutsi** (9); **bizirik eutsi** (8); **bolada onari eutsi** (6); **borrokari eutsi** (8); **buruari eutsi** (36); **dio eutsi** (11); **diot eutsi** (9); **edo hala eutsi** (7); **erasoari eutsi** (6); **ere eutsi** (17); **erritmoari eutsi** (17); **esandakoari eutsi** (8); **esker eutsi** (9); **estiloari eutsi** (6); **eta eutsi** (57); **eta eutsi egin** (12); **eta mailari eutsi** (7); **eta tinko eutsi** (7)

arnasari eutsiz (31); **bereari eutsiz** (6); **bideari eutsiko** (11); **bizirik eutsiko** (7); **borrokari eutsiko** (8); **ere eutsiko** (6); **eutsi ahal** (108); **eutsi ahal izan** (29); **eutsi ahal izango** (19); **eutsi ahal izateko** (48); **eutsi ahalko** (7); **eutsi arren** (11); **eutsi baino** (6); **eutsi behar** (180); **eutsi behar dio** (11); **eutsi behar diogu** (21); **eutsi behar diola** (8); **eutsi behar diozu** (7); **eutsi behar izan** (24); **eutsi behar nion** (6); **eutsi behar zaio** (10); **eutsi behar zaiola** (12); **eutsi behar zion** (6); **eutsi beharko** (45); **eutsi beharko dio** (17); **eutsi beharko diote** (6); **eutsi beharra** (13); **eutsi beharrean** (7); **eutsi bere** (6); **eutsi die** (23); **eutsi diezaiogun** (6); **eutsi dio** (150); **eutsi diogu** (13); **eutsi diola** (14); **eutsi dion** (13); **eutsi diot** (17); **eutsi diote** (73); **eutsi edo** (7); **eutsi egin** (202); **eutsi egin behar** (43); **eutsi egin beharko** (6); **eutsi egin die** (6); **eutsi egin dio** (30); **eutsi egin nahi** (11); **eutsi egin nion** (9); **eutsi egin zion** (47); **eutsi egin zioten** (17); **eutsi egingo** (48); **eutsi egingo die** (6); **eutsi egingo dio** (6); **eutsi egingo diola** (6); **eutsi egingo diotela** (7); **eutsi egiten** (57); **eutsi egiten dio** (9); **eutsi egiten zion** (12); **eutsi ere** (10); **eutsi eta** (177); **eutsi eta eutsi** (10); **eutsi ez** (16); **eutsi ezin** (19); **eutsi ezinda** (9); **eutsi ezinean** (12); **eutsi ezineko** (8); **eutsi ezinezko** (12); **eutsi ezinik** (116); **eutsi gabe** (6); **eutsi genion** (15); **eutsi gogor** (22); **eutsi goiari** (23); **eutsi gura** (8); **eutsi guran** (7); **eutsi izan** (29); **eutsi nahi** (169); **eutsi nahi badio** (6); **eutsi nahi die** (7); **eutsi nahi dio** (28); **eutsi nahi diogu** (10); **eutsi nahi diote** (13); **eutsi nahi izan** (14); **eutsi nahi izatea** (6); **eutsi nahian** (31); **eutsi nahiko** (9); **eutsi nion** (63); **eutsi ondoren** (8); **eutsi tinko** (6); **eutsi zeure** (8); **eutsi zien** (40); **eutsi zieten** (20); **eutsi zion** (479); **eutsi zion aldeari** (14); **eutsi zion atzo** (8); **eutsi zion bere** (10); **eutsi zion eta** (11); **eutsi zion lidergoari** (11); **eutsi zioten** (123); **eutsiko al** (10); **eutsiko balio** (10); **eutsiko balio bezala** (7); **eutsiko die** (15); **eutsiko diegu** (7); **eutsiko diela** (15); **eutsiko diete** (19); **eutsiko dietela** (13); **eutsiko dio** (84); **eutsiko diogu** (24); **eutsiko diola** (69); **eutsiko diola esan** (7); **eutsiko dion** (18); **eutsiko diot** (17); **eutsiko diote** (46); **eutsiko diotela** (28); **eutsiko dioten** (7); **eutsiko ez** (6); **eutsiko lioke** (10); **eutsiko ote** (14); **eutsiko ziola** (10); **eutsiko zion** (8); **eutsiz eta** (19); **eutsiz gero** (41); **ez zion eutsi** (9); **ezin eutsi** (49); **ezin eutsi eta** (6); **ezin eutsi izan** (13); **ezin eutsirik** (38); **ezin eutsita** (11); **ezin eutsiz** (12); **ezin eutsizko** (15); **gabe eutsi** (39); **gabe eutsi zion** (21); **gainean eutsi** (6); **gehiago eutsi** (27); **gehiago eutsi ezinik** (8); **gogoari eutsi** (19); **gogor eutsi** (23); **gogor eutsi zion** (7); **goiari eutsi** (8); **goleko aldeari eutsi** (6); **goranzko joerari eutsi** (6); **hala eutsi** (10); **hari eutsi** (13); **hariari eutsi** (8); **hitzari eutsi** (8); **hitzari eutsiko** (6); **hobeto eutsi** (7); **horiei eutsi** (9); **horretan eutsi** (6); **horri eutsi** (81); **horri eutsi behar** (10); **horri eutsi beharko** (6); **horri eutsi dio** (6); **horri eutsi nahi** (12); **horri eutsiko** (20); **horri eutsiko diola** (6); **horri eutsiz** (14); **irmo eutsi** (11); **irriari eutsi** (7); **irribarreari eutsi** (12); **izan zion eutsi** (39); **izan zioten eutsi** (11); **jarrerari eutsi** (15); **jarrerari eutsi zion** (6); **joerari eutsi** (11); **joerari eutsiz** (6); **kirioei eutsi** (6); **kopuruari eutsi** (7); **lanari eutsi** (9); **lanari eutsi behar** (6); **lehen postuari eutsi** (6); **leial eutsi** (6); **lidergoari eutsi** (27); **lidergoari eutsi zion** (8); **luzaroan eutsi** (9); **mailari eutsi** (83); **mailari eutsi ahal** (11); **mailari eutsi nahi** (9); **mailari eutsi zion** (8); **mailari eutsiko** (34); **mailari eutsiko dio** (7); **mailari eutsiko diola** (8); **malkoei eutsi** (24); **malkoei eutsi ezinik** (13); **minari eutsi** (6); **mingainari eutsi** (6); **mobilizazioei eutsiko** (12); **negarrari eutsi** (26); **negarrari eutsi ezinik** (9); **nekez eutsi** (16); **nekez eutsi ahal** (7); **neure buruari eutsi** (7); **neureari eutsi** (7); **nion eutsi** (7); **nola eutsi** (15); **nortasunari eutsi** (6); **onari eutsi** (15); **ondo eutsi** (68); **ondo eutsi zien** (7); **ondo eutsi zion** (31); **ondo eutsi zioten** (10); **ongi eutsi** (37); **ongi eutsi zion** (13); **ongi eutsi zioten** (8); **orekari eutsi** (7); **ozta eutsi** (10); **ozta ozta eutsi** (10); **pankartari eutsiz** (10); **pisuari eutsi** (9); **politikari eutsi** (8); **postuari eutsi** (18); **sendo eutsi** (13); **tentazioari eutsi** (17); **tinko eutsi** (36); **tinko eutsi zion** (10); **tinko eutsiko** (13); **tinko eutsiz** (10); **zabalik eutsi** (6); **zion barreari eutsi** (6); **zion eutsi** (55); **zioten eutsi** (14); **zutik eutsi** (8)

akusazioari eusteko (7); **aldeari eustea** (7); **aldeari eusteko** (13); **arnasari eusten** (12); **artean eusten** (6); **asmoari eusten** (13); **bakarrik eusten** (7); **barreari eusten** (7); **batek eusten** (14); **bati eustea** (15); **bati eusteko** (10); **bati eusten** (52); **bati eusten zion** (20); **berari eusten** (14); **bere horretan eustea** (6); **bereari eusteko** (7); **bereari eusten** (28); **bereari eusten dio** (17); **bezala eusten** (8); **bideari eusteko** (10); **bideari eusten** (13); **biziari eusteko** (7); **bizirik eusteko** (17); **borrokari eusteko** (8); **botereari eusteko** (9); **buruari eusteko** (6); **buruari eusten** (11); **du mailari eustea** (8); **ere eusten** (8); **esandakoari eusten** (6); **estrategiari eusten** (6); **eta eusteko** (6); **eta eusten** (8); **eta mailari eusteko** (15); **eustea da** (39); **eustea da helburua** (6); **eustea dela** (13); **eustea du** (6); **eustea erabaki** (38); **eustea erabaki du** (9); **eustea erabaki zuten** (11); **eustea espero** (7); **eustea eta** (26); **eustea ez** (12); **eustea izan** (11); **eustea izango** (18); **eustea izango da** (6); **eustea lortu** (33); **eustea lortu du** (6);

eustea lortu zuen (10); **eustea lortzen** (8); **eustea nahikoa** (7); **eustea zaila** (6); **eustea zen** (14); **eustearen alde** (11); **eusteaz gain** (11); **eusteko ahalegin** (6); **eusteko ahaleginean** (15); **eusteko ahaleginetan** (13); **eusteko asmoa** (33); **eusteko asmoa agertu** (6); **eusteko asmoz** (7); **eusteko aukera** (9); **eusteko balio** (7); **eusteko behar** (14); **eusteko bide** (7); **eusteko borondatea** (6); **eusteko borrokan** (21); **eusteko deia** (8); **eusteko edo** (6); **eusteko egin** (6); **eusteko ere** (6); **eusteko erronka** (12); **eusteko erronka izango** (6); **eusteko eskatu** (29); **eusteko eskatu zion** (7); **eusteko eskatu zuen** (6); **eusteko eta** (28); **eusteko gai** (33); **eusteko gai izan** (10); **eusteko gai izango** (8); **eusteko gauza** (11); **eusteko helburuarekin** (6); **eusteko indarrik** (7); **eusteko konpromisoa** (8); **eusteko lehian** (9); **eusteko modu** (6); **eusteko moduan** (8); **eusteko prest** (14); **eusten ahalegindu** (11); **eusten ari** (24); **eusten badio** (36); **eusten badiote** (13); **eusten baitiote** (7); **eusten baitzioten** (7); **eusten bazaio** (9); **eusten die** (23); **eusten diegu** (11); **eusten dien** (6); **eusten diet** (6); **eusten diete** (9); **eusten dieten** (7); **eusten dio** (186); **eusten dio bere** (6); **eusten dio eta** (8); **eusten diogu** (14); **eusten diola** (55); **eusten diolako** (9); **eusten dion** (58); **eusten diona** (11); **eusten dionak** (6); **eusten diot** (23); **eusten diote** (62); **eusten diotela** (19); **eusten dioten** (33); **eusten diotenak** (12); **eusten diozu** (8); **eusten eta** (15); **eusten ez** (10); **eusten jakin** (6); **eusten lagundu** (6); **eusten niola** (6); **eusten nion** (20); **eusten saiatu** (32); **eusten saiatu zen** (9); **eusten saiatuko** (19); **eusten saiatuko da** (12); **eusten saiatzen** (18); **eusten zaio** (9); **eusten ziela** (7); **eusten zien** (24); **eusten zieten** (15); **eusten ziola** (53); **eusten zion** (210); **eusten zion bere** (8); **eusten zion bitartean** (8); **eusten zion eta** (6); **eusten ziotela** (6); **eusten zioten** (59); **gogoari eusten** (7); **gogor eusten** (23); **gogor eusten zion** (7); **goiari eusten** (7); **hari eusteko** (7); **hari eusten** (7); **helburua mailari eustea** (15); **horretan eustea** (6); **horri eustea** (32); **horri eusteko** (50); **horri eusten** (36); **horri eusten dio** (6); **inflazioari eusteko** (6); **irmo eusten** (8); **itxaropenari eusteko** (6); **jarrerari eusten** (13); **konpromisoari eusten** (7); **lehen mailari eustea** (9); **lehen mailari eusteko** (12); **lehen postuari eusteko** (7); **mailari eustea** (151); **mailari eustea da** (15); **mailari eustea dela** (7); **mailari eustea izango** (6); **mailari eustea lortu** (9); **mailari eusteko** (222); **mailari eusteko ahaleginean** (6); **mailari eusteko behar** (6); **mailari eusteko borrokan** (16); **mailari eusteko lehian** (9); **mailari eusten** (17); **nagusia mailari eustea** (6); **nekez eusten** (13); **nola eusten** (11); **nola eusten zion** (7); **nortasunari eustea** (7); **onari eusten** (6); **ondo eusten** (6); **ongi eusten** (10); **orekari eustea** (7); **orekari eusteko** (10); **ozta eusten** (7); **ozta ozta eusten** (6); **pankartari eusten** (24); **postuari eustea** (12); **postuari eusteko** (16); **postuari eusten** (6); **sendo eusten** (11); **tinko eusteko** (9); **tinko eusten** (33); **tinko eusten dio** (9); **txapelari eusteko** (27); **txapelari eusteko erronka** (6); **zutik eusteko** (8); **zutik eusten** (10)

---

eutsiarazi, eutsiaraz(i), eutsiarazten *(orobat **eutsarazi**)* dio *ad* eustera behartu.

Pentsatu baitzuen Barbados-eko lehorrera itzultzea, baldin eta lehenbiziko ontzia bistaratzean bandera beltza jasotzeko irrika loriatsuak bere egitasmoan **eutsiarazi** ez balio. Juan Garzia

Lasaitu ederra hartu nuen, zinez, hiltegitik irtendakoan, kirats nazkagarri hartatik aldentzean, leku haren cm2 bakoitzean barneratua baitzen, antza, eta urdailari eta arnasari **eutsarazi** baitzidan behin baino gehiagotan, botaka ez hasteko. Xabier Olarra

Torricellik ur kopuru batek zuen pisua, aldez aurretik ezaguna zitzaion pisua, aireari **eutsarazi** zionean. Ibon Uribarri

---

eutsiezin **1** *izond* ezin eutsizkoa. ik **eustezin**.

Giza primateok bikotea osatzeko ia joera **eutsiezina** daukagu. Luis Elberdin

Errealitateak ongi frogaturik du proiektuak desbideratzeko eta planak urratzeko daukan jaidura **eutsiezina**. Jon Alonso

Egonezina, zoramena, nahi **eutsiezina**, ekaitz moduko zerbait. Luis Elberdin

Naturak krimenak egiteko gogo **eutsiezina** txertatu zigunean, zuhurki jakin zuen gure ahalmenen artetik legea urratzera ginderamatzaten ekintzak urruntzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Makurtu eta nire ipurdia laztantzen hasi zen adore **eutsiezinez**. Juan Martin Elexpuru

Beharbada, maitemina horregatik da premia egoera bat, gabezia egoera bat, eta norbaitengana bultzatzen gaituen indar **eutsiezina**. Luis Elberdin

Orainaldian bizi da, denboraren isurian, eta aurrera segitu behar **eutsiezina** sentitzen du, gero eta azkarrago, gero eta urrunago. Patxi Iturritegi

Dardarka zeukan ezpainartea, eta dirdai **eutsiezin** halako bat zerien begiei. Anjel Lertxundi

Emeki-emeki halako tristura pisu, **eutsiezin** batek hartzen ninduela sentitu nuen. Alberto Ladron Arana

Irritsari dagokionez, ez zen inolaz ere **eutsiezina**. Oskar Arana

Barre **eutsiezinak** puztuta, oilanda bat zirudien, biribil-biribil, hantxe saltoka, txingoka, eskortaren erdian. Jon Muñoz

Etorkizuneko Tourrean txukun-txukun maillot horia jantzita, Italiako Giroan Gilberto Simoniren gurpil **eutsiezinari** gehien eusten ziona. Berria - Kirola

Alderdien Legea «juridikoki **eutsiezina** eta politikoki desegokia» dela esan zuen Lasagabasterrek. Berria - Euskal Herria

Ordurako odola bor-bor jarririk zeukan Maizak, baina artean eutsi egiten zion **eutsiezin** bilakatzen ari zen desirari. Migel Angel Mintegi

Grinak krudelki eta doilorki nagusitzen zaizkio adimenari eta bateko zein besteko ekaitzek asaldatzen dute sakonetik gizakiaren gogo eta bizi osoa, ikara handiz batetik eta **eutsiezineko** desiraz bestetik. Imanol Unzurrunzaga

Ala nire gorputzaren miseriak bertatik bertara ukitu eta usaintzeak sendatu egin zion irrits **eutsiezinezko** hura? Xabier Mendiguren Elizegi

Etengabekoa eta **eutsiezinezkoa** da Botere Exekutiboak Judizialaren gainean duen presioa. Berria - Euskal Herria

2 (adizlagun gisa)

Gero eta **eutsiezinago**, larriago, sentitzen zuen haren ordaina emateko premia. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eutsiezin bat (3); **eutsiezin batek** (3); **nahi eutsiezina** (3)

---

eutsigarri *izond* eutsi daitekeena, euskeko modukoa.

Gero, hazkunde **eutsigarriaren** filosofian, gero eta handixeago eginez, itxi zuten unera ailegatu gara: enpresa finkatua, beste pauso batzuk emateko prest dagoena. Berria - Euskal Herria

Nola egin daiteke aurrera garapen **eutsigarri** bat sustatzeko, arlo sozialarekiko sentsibilitatea erakusten duten politikak bideratzeko. Berria - Mundua

Kontua ez da besterik gabe eta 'zenbat eta gehiago, hobe' lelopean bertsoa hedatzea, baizik eta modu **eutsigarri** batean zaletasuna sendotzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

eutsika *adlag* eutsiz.

Dionisos aulkian jesarrita geratu zen, ukalondoak belaunetan jarrita eta eskuez buru pisuari **eutsika**. Unai Iturriaga

Eguzkia sartua zen ordurako, baina zerumuga argitsu zegoen artean ilunabarreko azken printzekin, Nadia Tom ibaiaren ertzera iritsi zenean, Marfa Strogoffi **eutsika**. Karlos Zabala

Florentek entzun uste izan zuen aldamenekoen belarrira isilpean eta irriari **eutsika** zera esan zuela: "Ederki!". Karlos Zabala

Lurrean eseri eta biraoka aritu zen, zango bati eutsi- **eutsika**, ni haren pareraino iritsi artean. Mirentxu Larrañaga

---

eutsizale *izond* eusteko zalea dena.

Erasozalea baino gehiago, **eutsizalea** baita usurbildarra. Berria - Kirola

---

euzkotar ik **euskotar**.

---

exagrama ik **hexagrama**.

---

exajeratu ik **esajeratu**.

---

exajerazio ik **esajerazio**.

---

exakto *(ETCn **19** agerraldi, orobat **esakto** ETCn **5** agerraldi) izond*

Bestea da, sinesgarriagoa, berez, baina hain zehatza eta **exaktoa** ez dena: soinean daramagun azal sentikorraren sentsaziozko hotza. Pello Zabala

Guztiz hausnarketa **exaktoa** izango zen hori, Ambrose Bierce estatubatuarra izan ez balitz. Unai Elorriaga

Are gehiago bestela mundu zehazki doitu eta garbi arautu teknikoan ohituriko gizon-emakume modernoak, zer egin eta zer utzi beti oso **exakto** markatua edukitzen duenak egun osoan. Joxe Azurmendi

Badatozkigu filologoak, euskalari doktoreak, kaleko mendizaleak, huri zikinetako ekologistak, biologo jakitunak... beren izen zerrenda perfektoak, mapa **esaktoak**, alternatiba berriak eta turismobide seguruak eskuan dituztela. Patziku Perurena

---

exauzio *iz*

"Exauzio" hitzak "pentsamenduaren bidez akitu" esan nahi du. Jon Muñoz

Guztiz metodo eraginkorra erabili zuen Euklidesek, Eudoxok asmatua, eta, geroago, **exauzioaren** metodoa esango zaiona. Jon Muñoz

Platon, Akademiako lanak; Eudoxo Knidekoa, **exauzioaren** metodoa -kalkulu integralaren aurrekoa- sortu zuena, Antifonekin batera; Teodoro Zirenekoa; Teeteto; Arkitas Tarentokoa. Jon Muñoz

Exauzioen greziar metodoa ez da izan kale itsu bat, beharrezkoa egiten duena bertatik irtetea; kalkulu integralaren eredu inozoa da. Xabier Arregi

---

exegesi *iz* testuen, eta eskuarki Bibliaren, azalpena edo interpretazioa.

Eskolako lana, funtsean, Engelsen Langile-klasearen egoera Ingalaterran 1844 an liburuaren iruzkina edo **exegesia** zen. Iban Zaldua

Ondorengo mendeetan zehar, Vitruvioren jatorrizko testuaren hainbat bertsio egin zituzten latinez, hainbat hizkuntzetara itzuli zen, eta komentario kritikoak egin ziren, **exegesiak** eta ilustrazio grafikoak, galduta zeuden jatorrizko marrazkiak nolabait ere ordezkatu nahi zituztenak. Santiago Iruretagoiena

Eskrituraren **exegesia**, bai juduena eta bai kristauena ere, neurri handiz, testuak hitzez hitz hartu nahi izateak biziatu du. Xabier Kintana

Pentateukoaren pasarte batzuen **exegesia**. Xabier Kintana

Mendiak Apostoluen sinbolo dira Erdi Aroko **exegesian**; hemen kardinalei buruz esana dago. Askoren artean

Maimonek hemen hain xumeki adierazten duen arau hau ezin garrantzitsuagoa da edozein **exegesi** linguistiko edo literariotarako, bai eta interpretazio orokorretarako ere. Xabier Kintana

Alde batera uzten ditu **exegesi** biblikoaren metodoak eta Vicok edo Herderrek formulatu zuten hizkuntzaren filosofia. Xabier Arregi

Argien mendearen ondoren, Vitruviok behin betiko galdu zuen **exegesi** beharreko dogma izate hori. Santiago Iruretagoiena

Aberastasunen gramatika-azterketa harremanak ez dira gramatika-**exegesi** harremanen isomorfoak. kristau-erlijioak bere teologi **exegesirako** filosofia helenikoaren aparatua erabiltzen du. Xabier Arregi

---

exegeta *iz* exegesiak egiten dituen pertsona.

Origenes (185-254), **exegeta**, teologoa eta apologista kristaua. Juan Martin Elexpuru

Romá Gubern Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedraduna da gaur egun eta kultura mediatikoaren **exegeta** ezagunenetakoa. Txema Ramirez de la Piscina

Exegeta jakintsuek diotenez, oina lur baten gainean ipini eta haren gainera oinetakoa jaurtitzeak, lur horren jabe egitea esan nahi omen zuen. Patziku Perurena

Ni ez naiz ornitologo amerikarra, ez eta **exegeta** biblikoa ere, baina aditu izandu dut, aingeruak izutzeko modukorik. Patziku Perurena

---

exegetiko *izond* exegesiarena, exegesiari dagokiona.

Sakratu egindako testu baten iruzkin **exegetikoa**. Xabier Arregi

Horrela bururatua, diskurtsoa ez da gehiago izango jarrera **exegetikoarentzat** dena: alegia, agortezineko altxorra, beti aberastasun berriak, beti ustekabekoak, eman ditzakeena. Xabier Arregi

---

exekutatu, exekuta(tu), exekutatzen **1** du *ad* heriotze sententzia duen pertsona bat hil.

40ko hamarkadan, 50.000 lagun baino gehiago **exekutatu** zituen erregimenak. Berria - Kultura

Ia egunero, hiltzera kondenatutako ekintzaile iraultzaileak **exekutatzen** zituzten. Jose Morales

Ingalaterran ez da kriminalik **exekutatzen** erregeak epaia sinatu arte; gauza bera gertatzen da Alemanian eta ia iparralde osoan. Juan Martin Elexpuru

Krimenaren lekuan atxilotu zuten; gero **exekutatu** egin zuten, tortura izugarrien ondoren. Juan Martin Elexpuru

Exekutatu zituztenetako lau, Orioko gainean fusilatu zituzten. Xabier Etxabe

Alk, bestalde, errugabeak **exekutatzeko** dagoen arriskua ere gogoratzen du txostenean. Berria - Gaiak

Juan Ajuriagerra eta Lucio Artetxe negoziatzaileak ere atxilotu egin zituzten Santoñan, baina ez zituzten **exekutatu**. Jokin Urain

Borreroak behin soilik sentitu du hotz hezurretarainokoa; hain zuzen ere, beste borrero bat **exekutatu** behar izan zuen egunean. Karlos Linazasoro

Nicola Sacco eta Bartolomeo Vanzetti anarkistak 1927an **exekutatu** izanak berebiziko eragina izan zuen idazle estatubatuar honengan eta bien barkamena lortzeko alferrikako ahaleginetan gogotik aritu zen. Lopez de Arana

Gizon misteriotsu hark urkamendiraino lagundu zuen Sievers eta, **exekutatua** izan aurretik, elkarrekin aritu ziren otoitzean. Alberto Ladron Arana

Britainiarrek ia uharte osoan gerra legea ezarri, hiri askotan denda eta fabrikak erre, presoak torturatu eta **exekutatu**, eta hiru alkate irlandar hirurak Sinn Feineko eta IRAko kideak hil zituzten. Berria - Harian

Londres Ekialdeko portua, Wapping-en. Itsas Auzitegiak heriotzara kondenatutako kriminalak bertan **exekutatzen** ziren, eta hantxe urkatu zituzten pirata gehienak. Julen Gabiria

Bergarako kartzela zaharra izandako etxea ikusten izan nintzen biharamunean, Angiolilloz oroiturik, Cánovas del Castillo hiltzeagatik garrotez **exekutatu** zuten anarkistaz. Juan Luis Zabala

Borreroa bihozbera da, eta, ahal duenean, kondenatua ezustean **exekutatzen** saiatzen da. Karlos Linazasoro

Denbora irabazteko, **exekutatutakoa** desagerraraztea zen hurrengo pausoa. Harkaitz Cano

2 (era burutua izen gisa)

Pentsatzen du, halaber, **exekutatu** bakoitzarengatik hainbesteko bat kobratzeak zekentasuna bultzatzen duela, eta, beraz, odol-egarri guztiz basatira. Karlos Linazasoro

Exekutatuen buruak lur gainean arrodaka zebiltzala, itsas lapurren oihu eta irrien artean. Joan Mari Irigoien

3 informatikan, programa edo instrukzio bat betearazi ordenadoreari.

Adibide moduan, erabiltzailea Iruñean egon daiteke programa informatiko bat **exekutatzen**, eta programa hori AEBeko datu-base batekin konekta daiteke informazio jakin bat jasotzeko. Berria - Euskal Herria

Artxiboa **exekutatuz** gero, ordenagailu horretan gordetako helbide guztietara zabalduko da birusa. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat exekutatu (6); **bat exekutatu dute** (3); **exekutatu aurretik** (3); **exekutatu behar** (4); **exekutatu behar izan** (3); **exekutatu dituzte** (3); **exekutatu dute** (5); **exekutatu egin** (3); **exekutatu eta** (3); **exekutatu zituen** (4); **exekutatu zituzten** (11); **exekutatu zuten** (12); **pertsona exekutatu** (9); **pertsona exekutatu zituzten** (5)

---

exekutatzaile *izond* exekutatzen duena.

Inor ez dela gogoratzen beste norbaitek, beronek eginikoen epaile zorrotz eta larderiatsu, gogo **exekutatzailea** bere burua harrikatzeko punturaino eraman duenik. Jon Alonso

---

exekutiba *iz* zuzendaritza, zuzendaritza batzordea.

ELAko Mikel Noval eta CCOOko **exekutibako** Jesus Uzkudun ere han ziren. Berria - Harian

1996ra arte sindikatuko **exekutiban** egon zen. Berria - Ekonomia

Microsofteko **exekutibako** buru Steve Ballmerrek onartu berri du estrategiazko akatsa egin dutela bilaketari jaramon ez egiteagatik. Berria - Ekonomia

Luze jo zuen eztabaidak EAJren **exekutibaren** bileran. Berria - Euskal Herria

IUren **exekutiba** federalean sartu zara. Berria - Euskal Herria

Han izan zen Unzalu Salterain EHNEko batzorde **exekutibako** ordezkaria. Berria - Ekonomia

Han izan zen Unzalu Salterain EHNEko batzorde **exekutibako** ordezkaria. Berria - Ekonomia

Gurreak eta Lapazaranek UPNko **exekutibari** boterea kendu nahi diote, kontseilu politikoari emanez. Berria - Euskal Herria

Bere alderdiak «**exekutiba** zentralak ontziolaren aldeko kompromisoa bilatuko» duela gaineratu zuen. Berria - Ekonomia

Estatu handiek banku zentraleko **exekutiba** iraunkorreko ordezkari gehienak dituztela agerian jarri du azken hautaketak. Berria - Ekonomia

IUren **exekutiba** federalean sartu zara. Berria - Euskal Herria

BNGko Nazio **Exekutibako** iturrien arabera, dimisioa emango zuela ohartarazi zuen Bloqueko buruzagi berriak, «krisiari aurre egiteko» zuzendaritzaren kontrola bereganatzen ez badu. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

exekutibako kide (4)

---

exekutibo **1** *iz* enpresa, konpainia edo kidekoetan, goi mailako kargu bat duen pertsona.

Greg Coates konpainia ingeles handi bateko **exekutiboa** zen. Joxemari Iturralde

Eskolako tontoak, mordoa behintzat, **exekutibo** eta kudeatzaile egin dira, eta enpresa, aseguru, banku, poltsa, higiezin, aholkularitza eta abar zikin horietan erori dira. Iñaki Segurola

Bezero bat zen, emakume bat, senarraren fideltasunaz kezkaturik zegoen **exekutibo** baten emaztea. Migel Angel Mintegi

Smith faltsu haietako beste bat japoniar korporazio bateko **exekutibo** bati edo argentinar eraikuntza-enpresari bati saltzea lortzen zuen bakoitzean, bere bihotz zigortuak jauzi egiten zuen zoriontasunezko berrogeita zazpi uztai zeharkatuz. Oskar Arana

Minutu gutxiren buruan Uitziko mendatean ikusi genuen gorpua Iruñeko **exekutibo** batena zela jakin genuen. Juan Luis Zabala

Dotore jantzitako dozena bat lagun ageri ziren zein bere sakelako telefonoaren bidez hizketan, gizonezko gorbatadunak batzuk, gona motzeko emakumeak besteak, seriotasun osoz lanean gogor ari ziren **exekutiboak** guztiak itxuraz. Juan Luis Zabala

Exekutiboek badakitela gauza onak, finak eta atseginak estimatzen, baina dirua neurri duenak, nahi ez duela ere, "gauza garestiak" behar ditu begiz jo. Iñaki Segurola

Exekutibo [...]: Gobernuaren bulegari bat, eginbehartzat duena botere legegilearen nahiak betearaztea, departamentu judizialak baliogabe eta ondoriorik gabekotzat deklaratzen dituen arte. Xabier Olarra

2 (izenondoekin)

Duela urtebete, Disney konpainiako **exekutibo** gorenak, Michael Eisnerrek, Miramaxekin zuten akordioa bertan behera uzteko eskatu zien Michael Mooreri eta haren agente Ari Emanueli. Berria - Kultura

Taxiren bat edo beste, jai gogoz dabiltzan **exekutibo** arlote mozkorrak barruan. Urtzi Urrutikoeetxea

Exekutibo agresibo, yupi nazkagarri, txuloputa tankerakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alboan eseri zitzaion **exekutibo** itxurako gizon ezezagun batek erran zion gauza ikaragarri bat ari zela gertatzen bere etxean; alegia, bera autobusean zebilen bitartean, bere emaztea beste gizon batekin zetzala beren ohean. Josetxo Azkona

Kale batean **exekutibo** pila bat ikusten zen, gizonezkoak nahiz emakumezkoak, guztiak dotore jantzita eta karteratxo bana aldean. Juan Luis Zabala

Ile ondulatua jaisten zaio **exekutibo** jakaren atzetik, dotoreziaz ixten zaio gerrian bularrak doi bat tentetuz. Urtzi Urrutikoeetxea

4 gobernu organoa, botere legegilearen aginduak betearazteko eginkizuna duena.

Berriz abian jarriko dute legebiltzarra, **exekutiboa** osatzeko epemuga berri batekin: azaroaren 24a. Berria - Mundua

Elizak edozein unetan interferitzen du debate politikoan; Judikaturak men egiten dio **Exekutiboari** noiznahi, inolako independentziarik gabe. Berria - Kultura

Datozen urteetan Egonkortasun Ituna beteko duela zin egin du Lisboako **exekutiboak**. Berria - Ekonomia

Pekingo **exekutiboak** jakin baitaki ez zaiola komeni segurtasun ezaren irudia munduan barreiatzea. Berria - Kirola

Aitortza hori, Ange Santini, Lurralde Elkargoko **Exekutiboaren** presidenteak berak egin zuen. Berria - Mundua

Prozesua zuzendu behar du eta horretarako beste talde politiko guztien laguntza eta elkarlana izan behar du, terrorismoaren kontra borrokatu diren eta borrokatzen direnen laguntza behar du **Exekutiboen** laguntza artistikorik gabe ari da filmatzen Londresen, eta ez du baztertzen aurrerantzean ere AEBetatik kanpo filmatzea. Berria - Harian

Exekutiboko kideak aldatzeko eskubidea aitortu zion PANeko presidenteak. Berria - Mundua

Bi datu mota nahi ditu George Bush poresidentearen **exekutiboak**: alde batetik, zehaztu ez duten aste batean Googlen bilatzeko sartutako hitz guztien zerrenda (litekeena da dozenaka milioi hitz izatea). Berria - Gaiak

Mundu osoko indigenek salatu dutenez, beren eskubideak zaintzeko nazioarteko legerik garrantzitsuena zapuzteko ahaleginetan ari da Tony Blairren **exekutiboa**. Berria - Gaiak

Exekutibo europarrak EBko lehiaren legeak urratu izana salatu zuen ikerketaren bidez. Berria - Ekonomia

Exekutibo zabala eta sendoa osatu nahi du presidenteak, baina horrek erreformak egiteko zailtasunak sortu eta zatiketak eragin ditu PTn. Berria - Mundua

Ez dugu nahi **exekutibo** elitistarik. Berria - Harian

5 *izond* boterearen edo agintariaren erabakia betearazten duena.

41 kide izango dira sindikatu ardura postuetan, eta horietako hamar, bost gizonezko eta bost emakumezko, zuzendaritza **exekutiboan**. Berria - Ekonomia

UPNko batzorde **exekutiboak** krisia «itxia» dagoela esan zuen. Berria - Euskal Herria

Aurreko ekitaldi batzuetan baino sarrera gehiago saldu dira», adierazi du Marton Simitsekek, antolakuntzako zuzendari **exekutiboak**. Berria - Kirola

Sheriff [...]: Estatu Batuetan, udalerri mailan botere **exekutiboak** duen burua. Xabier Olarra

Espainiako Estatuak ez dela zuzenbidezko Estatu bat erakutsi du berriro ere, eta Botere Judiziala Botere **Exekutiboaren** jarraipen bat besterik ez dela. Berria - Euskal Herria

Ernestek talde bat osatzeko agindua eman du -Intelligence Serviceko Neville buru, Ermua ofizial **exekutibo** eta Patrick eta Gregory semeak tropa- eta han joan dira laurak, kobazuloan barrena gero eta sakonago. Edorta Jimenez

6 funtzio eta kidekoez mintzatuz, betearazlea.

«Funtzio **exekutiboak** egiten die huts haur hauei, hau da, ez dakite gauzak noiz egin eta zertarako», dio psikologoak. Berria - Gaiak

Irlanda Iparraldeko Asanblea sortu zuten eta eskumen **exekutiboak** eta legegileak eman zizkioten. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batzorde exekutibo (6); **batzorde exekutiboak** (7); **batzorde exekutiboaren** (4); **botere exekutibo** (4); **botere exekutiboa** (9); **botere exekutiboak** (4); **eta exekutiboa** (3); **exekutibo berria** (3); **exekutiboa ez** (3); **exekutiboa osatzeko** (3); **exekutiboan parte** (3); **nobeko batzorde exekutiboaren** (3)

---

exekutoria *iz* legeen bidez familia edo pertsona baten noblezia, erakusten duen agiria.

Zenbat **exekutoria**, zenbat armarri, ijito euskaldunenak, gerra eta ofizialkeria aitzakia beren gutiustea nobletu nahian. Markes titulua eta armarria izateko, ordea, **exekutoria** behar. Patziku Perurena

Herriotako **exekutoriak** ikustean, aise sumatzen da, hain zuzen ere, judu, jito edo agote kastakoak zirela hidalgia agiriak ateratzen zaletuenak. Patziku Perurena

Normalean ez baitzen aiton amonena baino atzeragoko daturik eskatzen **exekutorietan**. Patziku Perurena

---

exekutorigile *iz* exekutoriak egiten dituen pertsona.

Halere, askotan, espagatik edo, salatu egiten zuten **exekutorigilea**, hereje, agote edo judio zela azalduz. Patziku Perurena

---

exekuzio *(orobat **exekuzione** g.er.)* **1** *iz* heriotze sententzia duen pertsona bat hiltzea.

Neskameentzako nobela bat aldizka, laurehun atal guztira, bakoitza hogei xentimoan, eta atal bakoitzean hilketa bat lapurretarekin, edo sute bat, edo **exekuzio** bat, edo haur bat bahiturik... gustu guztientzat zernahi. Anton Garikano

Carlos I. aren **exekuzioa**. Askoren artean

Vernerrek bazekien **exekuzioa** ez zela hiltze hutsa, beste zerbait ere bazela. Jose Morales

Kondenatuei ez zieten esan **exekuzioa** noiz izango zen, baina bazekiten gau horretan bertan urkatuko zituztela. Jose Morales

Ray Allenen abokatuek gogor gaitzetsi zuten **exekuzioa**. Berria - Mundua

Ez bakeak ez terrorearen aurkako borrokak ez dute **exekuzioa** justifikatzen. Berria - Mundua

Jazarpena, tortura, **exekuzioak**, sarraskiak, erasoak, desagertzeak, bidegabekeriak, kartzelaldiak, gerra krimenak. Berria - Harian

Iraingarria da oraindik **exekuzioak** egiten dituzten estatuak egotea. Berria - Mundua

Azken hiru urteotan legez kanpoko atxiloketak, desagerketak eta **exekuzioak** areagotu egin dira Txetxenian. Berria - Mundua

Isiltasun izugarri hartan, ihesi zihoazen minutuen soinu goibelak kulunkaturik, bizidun ororengandik urrun, bost pertsona -bi emakume eta hiru gizon- gauaren, egunsentiaren eta **exekuzioaren** zain zeuden, eta bakoitza bere erara prestatzen zen ataka horretarako. Jose Morales

Diotenez, Westinghouse jaunak, aulki elektrikoan hiltzera kondenatzear zen lehen gizonari abokatua ordaindu zion ezkutuan, **exekuzioa** bertan behera uzteko itxaropenarekin. Harkaitz Cano

Eslovakian 164 zibilen **exekuzioa** agindu izana leporatu dio Fiskaltzak. Berria - Mundua

Fiskalak gizon baten **exekuzioa** geldiarazteko eskatu zion Ipar Karolinako gobernadoreari heriotza zigorra ezartzerakoan homosexualitatea kontuan hartu zuelako epaileak. Berria - Gaiak

Iraingarria da oraindik **exekuzioak** egiten dituzten estatuak egotea. Berria - Mundua

Bizkitartean epaitegi honek ebazten du -esan zuen Nikolas Trot-ek- **exekuzioaren** tokira eraman eta hantxe lepotik zintzilika zaitzatela heriotza eragiteraino. Juan Garzia

Exekuzioaren albistea bolo-bolo zabaldu zen. Patxi Zubizarreta

Exekuzioaren jakinarazpen ofiziala irakurri behar dizugu. Iñaki Mendiguren

Jansonek bezala, Mishka Tsiganokek hamazazpi egun igaro behar izan zituen kartzelan, **exekuzioaren** zain. Jose Morales

Parisko Komunako kideek, guztira, borroken eta **exekuzioen** artean, 600 lagun hil zituzten. Berria - Kultura

Lakuaren ur geldietan urtzen baitziren ordu arte ikusi nituen iduri gogor bezain krudelak: osaba Joanikoten kalbarioari lotuak, edo Antonio Ibarbia gipuzkoarraren heriotzari, edo Alain Coup d'Oil itsas lapurraren **exekuzioneei**. Joan Mari Irigoien

Kolpe militarra gertatu zenetik, mila herritar inguru hil dituzte epaiketarik gabeko **exekuzioetan**. Berria - Mundua

Urkatzaile AB-k elektrokuzio bidezko **exekuzioari** buruz zutabe mordoxka bat idatzi zuen. Xabier Olarra

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Berg 26 urteko gazte estatubatuarraren **exekuzio** beldurgarriaren eta horrek sorturiko suminduraren ondoren. Berria - Mundua

Iruzurra egin eta **exekuzio** arbitrarioak agindu izanagatik zigortu nahi zuten Karuna. Berria - Mundua

Exekuzio publikoak arratsean izaten ziren: makilka edo, ihes-ahaleginak bezalako falta larrien kasuan, urkamendian. **Exekuzio** masiboak egin zituzten hainbat plazatan, bereziki, Badajozen. Urtzi Urrutikoetxea

Exekuzio arruntetan ere ez, ezta kondenatuen familiakoen diruak motzago eta aspergarriago egiten zituenetan ere. Aingeru Epaltza

Doi-doi lortu nuen andrea ez ohartzea; ez dut gogoan noren **exekuzio** berehalakoa eskatzen zuen oihalak. Aingeru Epaltza

Elektrizitate bidezko lehen **exekuzioak**. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fusilaketa da erematea behar duen **exekuzio** mota bakarra. Koldo Izagirre

Borreroak **exekuzio**-horman huntz gorria aldatu zuen, batik bat bala zuloak disimulatzearren. Karlos Linazasoro

Kontua da hurrengo goizean erregea oso kezkaturik ibili zela bufoiaren bila, eta are gehiago kezkatu zela **exekuzio** plazan gertatzen ari zena jakinarazi ziotenean. Patxi Zubizarreta

Uko egin zionat nik hire **exekuzio**-pelotoiaren aurrean begiak lotailu batez estaltzeari. Joxan Elosegi

Exekuzio egunak seinalatuak izaten ziren Garrüzen. Aingeru Epaltza

Borreroak, aldi bakan batzuetan, **exekuzio** garaian ezin izan du eiakulazio arintxo bat ekidin. Karlos Linazasoro

Exekuzio simulazioak egitea: edo polizia etxean hildako pertsonei buruz mintzatzea. Berria - Harian

Inkomunikazio aldian Martxelo Otamendi eta beste atxilotu batzuk ariketa fisiko nekagarriak egitera behartu omen zituzten, eta **exekuzio** plantak egin omen zizkioten. Berria - Euskal Herria

Hango artxiboak gordetzen du Claudio Guillon deitzen zen zaldun gizajo baten ahozko auzia eta **exekuzio**-agiria: lepoa moztu zioten 1629ko uztailaren 28an. Juan Martin Elexpuru

Borreroaren etxean ez da sekula **exekuzio** hitza erabiltzen, ezta horren aldaerarik ere. Karlos Linazasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erakunde horri leporatzen diote gero Lavalas izena hartuko zuen Aristiden alderdiko oinarrizko militanteen edo jarraitzaileen artean masa **exekuzioak** egin izana. Berria - Mundua

5 agindu, sentenzia edo kidekoa gauzatzea edo betearaztea.

Foru Aldundiak eta Mankomunitateak elkarrekin eta modu koordinatu batean beraien konpetentziak garatu eta beharrezkoak diren azpiegitura berrien **exekuzioari** aurre egiteko helburuz, bilduko dituen kontsorzioaren estatutu zirriborroa zabaltzea. Berria - Euskal Herria

Gizarte eta lan arloko eskumenak oso-osorik Euskadiko Erkidegoari dagozkiola argi eta garbi azaltzea (politika horien lantze, gauzatze eta kontroleko euskal instituzioek legegintzarako eta **exekuziorako** ahalmen guztiak dauzkatela zehaztuta). Berria - Euskal Herria

Exekuzio materiala: 2.640.000. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dute exekuzioa (3); **epaiketarik gabeko exekuzioak** (3); **eta exekuzio** (7); **eta exekuzioa** (3); **eta exekuzioak** (4); **eta exekuzioen** (3); **exekuzio bat** (3); **exekuzio publikoak** (3); **gabeko exekuzioak** (3)

---

exekuzione ik **exekuzio**.

---

exenplu ik **etsenplu**.

---

exento ik **exentu**.

---

exentu *(orobat **exento**)* **1** *izond* bakartua.

«1955etik aurrera ekin zion Oteizak argia ikertzeari, eta horren ondorio sortu zituen argi kondentsadore izendatu zituen irekigune osatu zein osatugabeak dituzten erliebe eta forma **exentuak**», azaldu zuen Margit Rowellek. Berria - Kultura

2 *adlag* salbuetsita.

Hiru kategoriatako bulak omen zeuden prezioen arabera, pobreak **exento** zeuden. Mikel Hernandez Abaitua

---

exertzitatu, exertzita(tu), exertzitatzen du *ad* aritu, jardun.

Guk dugu sinhesten, ezen egiazko Pastor oro, non ere baitirade, bere ofizioaren **exertzitatzeaz** den bezenbatean, zein bere lekhuetan autoritatez eta puisantzaz bardin diradela. Iñaki Iñurrieta

---

exfoliante *iz* epidermisa lamina edo ezkatetan banatzen edo bereizten duen gaia.

Hildako zelulak eliminatzeko **exfoliantea**. Jasone Osoro

---

exhalatu, exhala(tu), exhalatzen du *ad* gasez, lurrunez, usainez eta kidekoez mintzatuz, igorri.

Ametsetan aldareek baporea **exhalatzen** eta kea gorantz doala ikusten dugunean bezala. Xabier Amuriza

Ibai taigabeek lainoa **exhalatzen**. Xabier Amuriza

Haizea hemendik pasatzen dela pentsatu behar da eta berezko indarrak itsaso zabaletik barru-barrura sarrarazten eta gero kanpora **exhalatzen** du eta horrela garra jasotzen. Xabier Amuriza

---

exhaustibo *izond* dagokion gaia edo egitekoa erabat ahitzen duena.

Pierre Gros-ek demostratu du, aldiz, zein puntutaraino den faltsua gisa horretako ilustrazio-korpus **exhaustiboa** imajinatzea. Santiago Iruretagoiena

Antzinako arkitektura-aztarnen ikerketa **exhaustiboko** kanpainak. Santiago Iruretagoiena

---

exhibitu, exhibi(tu), exhibitzen du *ad* jendaurrean erakutsi; nabarmen erakutsi.

Beren buruaz eta beren obraz hitz egiteko sekulako gogoarekin, beren konplexuen morroi, gaueko hitzorduak luzatu nahian ibiltzen ziren beren galai itxura zainduegi horiek **exhibituz**. Joxean Agirre

Gorrotatu egiten ditut beren laineza eta hantusteak, **exhibitzeko**, enkoadratuak izateko, fokoen pean jartzeko duten premia hori. Joxean Agirre

Badaki horretarako aski duela soineko arin bat janztea, **exhibitu** gabe ere edertasuna agerian utziko diona. Joxean Agirre

---

exhibizio *iz* exhibitzea.

Bizilagunok bagenekien **exhibizio** hura dena, lotsagabe eta lotsagarria izateaz gainera, egiazkoa zela, eta horrexek ematen zigun inbidiarik handiena. Xabier Mendiguren Elizegi

Istorioak kontatzeko eta, zergatik uka, inguruko nortasun kolektibo maiz itogarritik aldentzeko eta askatzeko zen ariketa, **exhibizio** keinu errepikatua bilakatu da. Jose Angel Irigaray

Exhibizio ariketa da, baina ez dago arranguratik edo minetik eginda, distantziatik eta, beraz, harrotasunetik baizik. Berria - Kultura

Noizbait hitzegin beharko dugu baserritar atzo kaleratu moddernoez, hitano femeninoa menderatzea kapital intelektual bakartzat dutenez, eta beren lehengusu-lehengusinen

etxeko euskara hain ederra gorde -berek ahantzi egin dutela diote-, eta gaztelera inpresentable baten **exhibizioa** egiten dutenez. Patziku Perurena

Gauean boxeo konbateak izango dira hementxe bertan, miradorean, **exhibiziokoak**, eta domina bat jarriko zaio Uzkuduni. Bernardo Atxaga

---

exhibizionismo *(orobat **exibizionismo** g.er.) iz* bere burua exhibitu nahi duenaren jokaera nabarmena.

Eskandaluak, indiskrezioa eta **exhibizionismoa**, intimotasunaren alderdi zaratatsuenak hain indarrean dauden gizarte honetan, zer dago intimoagorik isiltasuna baino? Joxean Agirre

Gauza bat da nork bere buruaren striptease bat egitea, asmo intelektualez jantzitako **exibizionismoa** praktikatzea, eta beste bat, oso bestelakoa, beste inor jendaurrean biluzaraztea. Xabier Mendiguren Elizegi

Suarezek argitu du ez duela «minen **exhibizionismoa**» egitea bilatu liburuko poemetan. Berria - Kultura

Margaret, Danny eta Christine Doll Rodek garage-rock primitiboa eta **exhibizionismoa** uztartu dituzte (zuzenean arropa gutxi eraman ohi dute hirurek). Berria - Kultura

Bere grina gaiztoenei bide egiteko prest baldin bazen berrogei lagunen aurrean, garbi asko zegoen **exhibizionismoaren** lizunkeria ere erantsi nahi ziola gozamen hari. Joxan Elosegi

Tarantulismoak kutsatutakoek **exhibizionismorako** -tarantularen helduak jasan ezinezko beroak sortzen ditu dirudienez- joera nabarmena izan ohi zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Donatienen atsegin eta fantasia nagusiak miazketa, uzki-koitoa, alu-koitoa eta masturbazioa dira, hau guztia taldean, eta **exhibizionismoz** eta zokomiraz ongi apailatuta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gordailu horietan zernahi aurkituko dugu, baina nekez literaturarik, honen egitekoa ez baita gure baitako zauriak edo bozkarioak agerian jartzea (hori **exhibizionismo** merkea litzateke), alderantziz, lotsarazten gaituzten estigmak ezkutatzea baizik. Joxean Agirre

Exhibizionismo puntu bat ere ikusi uste izan nuen dohakabe haren jardunean, halako jaidura hozkirritsu bat. Karlos Linazasoro

Musu eman genion elkarri, Adak naturalitatez, nik naturala izan nahi zuen **exhibizionismo** gisako batez. Anjel Lertxundi

Gipuzkoako Fiskaltzak ia hiru urteko espetxe zigorra eskatu du Getariako hondartzako Gurutze Gorriko zuzendari ohiarentzat, sorosle adingabe bati sexu erasoak egitea eta **exibizionismo** delitua egitea leporatuta. Berria - Euskal Herria

30 urteko gizon bat atxilotu zuen Guardia Zibilak Kalagorrin (Errioxa, Espainia) ustez bi eraso sexual eta 20 **exhibizionismo** deliturengatik. Berria - Euskal Herria

---

exhibizionista *(orobat **esibizionista** g.er.) izond/iz* exhibizioari dagokiona; pertsonez mintzatuz bere burua exhibitzeko joera duena.

Harroa da, burgoia, bere dohainen berri ondo dakiena, **exhibizionista**. Askoren artean

Badira fantasia homoak eta heteroak; bikote, hirukote eta taldeko fantasiak; fantasia kuxkuxeroak edo **exhibizionistak**; fantasia samurrak eta erromantikoak, eta fantasia mugituagoak. Luis Elberdin

Abdul gauza asko izan zen bere bizitzan: suhiltzaile, porno aktorea, gigolo, postari, organista, aseguru-saltzaile, bortxatzaile, poeta, **exhibizionista**, diseinatzaile, maisu. Karlos Linazasoro

Non kazetaritzaren objektibotasunaz baliatu, nire gogoaren berri eman behar **exhibizionista** uhertu beharrez, eta non subjektibotasunari hel egin, jazoeren segida hutsa eta hotza nagusi ez dadin. Ez zait gehiegi gustatzen Eiffel-en garaian burdinari ahalik etekin gehien atera nahirik sortutako arkitektura **exhibizionista**: injinerua gainditzen zaio arkitektoari, teknika senari, ikuskizuna arimari. Aingeru Epaltza

Exhibizionista hutsak. Iñaki Iñurrieta

---

exibizionismo ik **exhibizionismo**.

---

exigente ik **exijente**.

---

exigentzia ik **exijentzia**.

---

exigitu ik **exijitu**.

---

exijente *(orobat **exigente** eta **esijente**) izond* asko exigitzen duena.

Bilbokoa baita Espainiako plazarik gaitzena, zezen handienak ekartzen dituena eta publiko zorrotzena eta **exijenteena** duena. Edorta Jimenez

Norberak nahi duena egitea ezinezkoa da, eta are gutxiago txirrindularitzaren tamainako kirol diziplina **exijentean**. Berria - Kirola

Norberak **exigentea** izan behar du bere buruarekin. Berria - Kirola

Entzuleentzat ere obra **exijentea** da; ez dago atsedenik, dena jarraian gertatzen den drama gogorra da. Berria - Kultura

Milan-San Remo fisikoki oso proba **exijentea** dela. Berria - Kirola

Gogorra baino **exijentea** da goi mailako kirola. Berria - Kirola

Egia da, aitak esaten ziola, oso **exijentea** jaio zela... baina berari gertatzen zitzaiona zen ez zekiela oso ondo munduan zertarako zegoen. Pablo Sastre

Badira batzuk, ordea, estetikari eutsita ere ikusle **exigenteenen** arreta bereganatzea lortzen dutenak.Batzuk hor **exijenteagoak** dira eta gu, berriz, errealistagoak. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **exijentea da** (3)

---

exijentzia *(ETCn **1.631** agerraldi; orobat **exigentzia** ETCn **135** agerraldi) iz* **1** exijitzea; exijitzen den gauza.

Exijentzia bat zen, manua eta ordena, eske bat baino areago. Joan Mari Irigoien

Oharpena eta **exijentzia**, anaiek lehen garaietako bizimoduari zintzo jarrai diezaioten. Askoren artean

Zer dela eta gertatzen da hori? Argitaletxeen **exijentzia** bat al da? Berria - Kultura

Herriaren benetako nahia errespetatu beharraren **exijentziak**. Hasier Etxeberria

Barkamena **exijentzia** bada, barkamenaren doakotasuna galdurik gelditzen da. Joseba Zulaika

Logika perbertso honen arabera, maitasunaren **exijentzia** traizioa zen. Joseba Zulaika

Exijentzia horien guztien lorpen erabatekoak azkenean emaitza egokia ekarriko du, ez ikuspegi kontzeptualaren aldetik begiratuta soilik, baizik eta baita ikuspegi estetikotik

begiratuta ere bai. Santiago Iruretagoiena

Elizaren barne-erreforma erabateko baten premia eta **exijentzia**. Santiago Iruretagoiena

Hainbeste **exijentzia** betetzeko gauza izango ote naiz? Luis Elberdin

-Bartzelonara ezkonduko haiz, eta ongi iruditzen zaidak, baina, ordainean, hemen ezkondu behar duk, gure auzoan, entzun al duk, seme? -esan zidan aitak telefonoz bestaldetik, bere **exijentziak** azalduz, ezkontzaren berri jakinarazi nionean. Joan Mari Irigoien

Justiziak, argi dago, bere lana egin behar du, gure konstituzio arauak errespetatuta eta Estatuaren jarraitasunaren derrigorrezkotasuna eta defentsa sekretuaren **exijentziak** aintzat hartuta». Berria - Mundua

Gloria Macagapal Arroyoren gobernuak **exijentzia** honi uko egin ostean,kamioilari filipinarraren bahitzaileek joan den igandean 21:00etan amaitzen zen ultimatum bat jarri zuten. Berria - Mundua

Epe hau bukatutakoan ez bazaie gure **exijentziei** konplimendua ematen, hil egingo dugu Guebokinder Artximandrita delakoa. Jon Alonso

Igerabideren iritziz, bekadun izateak **exijentzia** bat gehitzen dio idazleari, «proiektua onartu eta saritu ondoren, jarraipen bat egiten zaiolako». Berria - Kultura

Protestek eta oposizioko buruaren **exijentziak** eraginda, Chen Shui-bianek botoak «lege prozedurak errespetatuz» berriz zenbatzea erabaki zuen atzo. Berria - Mundua

Gaumontek txirrindularitzako dopina eguneroko kontua dela esan zion Poliziari, eta taldeetako kirol arduradunen **exijentziek** eragin zuela EPOaren erabilera zabala. Berria - Kirola

EBk ez dio halako **exijentziarik** egin Tel Avivi, eta honek lurralde palestinarrak okupatzen eta palestinarrak azpiratzen segitzen duen arren, Bruselak lehentasunezko akordio ekonomikoak mantentzen ditu harekin. Berria - Mundua

Filipinetako soldaduen misioa, dena den, datorren abuztuaren 20an amaitzekoa zen, baina Manilak aurrez erretiratu egin ditu bahitzaileen **exijentziei** amore emanda. Berria - Mundua

Iad Alaui Irakeko lehen ministroak Kairoko Gobernuari zinki eskatu zion atzo «terroristen **exijentziei** amore ez emateko». Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arrazoiaren **exijentzia** berriak bete nahi zituen teologia zientifiko bat lantzeko. Askoren artean

Kontziente naiz **exijentzia** handiarekin idatzitako liburua dela. Berria - Kultura

Testuak, beraz, ez du beste munduko kalitaterik, baina gaiaren tirapena eta komedia giroa aproposak izan daitezke **exijentzia** gutxiko ikusleak antzokietara erakartzeko. Berria - Kultura

Exijentzia argia egin die Espainia eta Frantziako gobernuei: euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eta haien estatus politikoa aitortzea. Berria - Euskal Herria

Bakea **«exijentzia** kolektiboa eta lehentasun politikoa» dela dio zirriborroak. Berria - Euskal Herria

Balantzea, hauxe: ia astebete etxetik urrun, **exijentzia** fisikoko bi partida gogor, ordu mordoa hegazkinetan eta hoteletan, eta beharrezkoak diren atseden orduak ezin hartu. Berria - Kirola

Mishimak **exijentzia** estetiko handiko mundu bat eraiki zuen bere literatur lanetan. Berria - Kultura

Arriskuak «oso arraroak» baldin badira, zergatik da **exijentzia** erregulatzaile bat botiken aurretiazko segurtasunaren determinazioa bideratzea? Berria - Gaiak

Oinarrizko **exijentzia** ordena da (dedukzioan); izan ere, egia -ezagutza ziurra- gure ideien ordena betiereko egien ordenarekin bat etortzean datza. Askoren artean

Ultimatum [...]: Diplomazian, amore ematera jo aurretik egiten den azken **exijentzia**. Xabier Olarra

Higieneari dagokionean edo kalitate kontrolei dagokionean sekulako **exijentziak** ezartzen dizkigute. Berria - Ekonomia

San Mamesek ere, ohiko **exijentziak** tarteko, seme kuttuna zuen. Berria - Kirola

Zergatik larritzen gaitu gu hainbeste lehendik ere antzeko **exijentziak** behin baino gehiagotan entzun baditugu? Berria - Harian

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Exijentzia mailak torlojoak hertsiko dizkio produktuari, dudarik ez, eta industriak ere kalitate bikaina eskaini beharko du. Edorta Agirre

Jarrera hori «guztiz bidegabea» iruditu zaio ETBri, eta nahiz eta IBAIAk aldarrikatzen duen lege **exijentziari** aipamenik egin ez, «Liburu Zuria martxan jarri zenetik ETBk inoiz baino laguntza handiagoa» eman diola ikus-entzunezko ekoizpenari esanaz erantzun dio. Berria - Kultura

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pro-Tour Ligak nabarmen handituko du kirol **exijentzia**. Berria - Kirola

Soinu **exijentziak** ere ez. Berria - Kultura

Gazteei aurrera egiteko aukera eman nahi diete, berehalako emaitza **exijentziaren** gainkargarik gabe. Berria - Kirola

Mena zuzendariak ondo kontzertatu zituen bai orkestraren joaldi landua, zein biolin bakarlariak musika-tresnari eman beharreko goi **exijentzia** ere. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta exijentzia (8); **exijentzia bat** (5); **exijentzia eta** (3); **exijentzia handia** (4); **exijentzia hauek** (3); **exijentzia hori** (3); **exijentzia maila** (11)

---

exijitu *(ETCn **10.698** agerraldi; orobat **exigitu** ETCn **215** agerraldi)* , **exiji(tu), exijitzen** du *ad* irmo eskatu, horretarako esku duenak.

Emakumeak birjina izan behar zuen, haren senargai tentelak **exijitzen** zuelako. Karlos Zabala

Argitaletxea, orain, aztertzen ari da Udalaren kontra neurririk hartu edo ez, baina, nolanahi ere, zuzenketa publikoa **exijitu** du. Berria - Kultura

Lan gatazka politizatu dute eta euren burua zuritzeko edo, ontzioletako langileoi leporatu digute gehiegizko soldata igoera **exijitu** izana. Berria - Ekonomia

Neurri eraginkorrak **exijitu** ditu Batasunak. Berria - Euskal Herria

Estatu-Nazioa erlijiosoa da errotik, sakraltasunaren erritu, bandera eta liturgia guztiekin; eta fedea eta debozioa **exijitzen** ditu. Joxe Azurmendi

Makina bat aldiz interpretatu du «ahots iluna eta landua» **exijitzen** duen pertsonaia. Berria - Kultura

Bildu ezin daitezkeen informazioak **exijitzen** zaizkigu. Josu Zabaleta

Legearen konposizioak ordainarazteko eta legearen isunak **exijitzeko** eskubidea besterik ez zen. Iñaki Iñurrieta

Benetan maite banauzu, traiziona nazazu... Hori da, ebanjelio apokrifoaren arabera, Kristok Judari **exijitu** ziona. Joseba Zulaika

Kartagotarrek **exijitu** zieten erromatarrei ez zezatela nabiga muga batzuetatik harantzago, eta greziarrek agindu zioten Pertsiako erregeari zaldi-lasterraldi bateko tarteaz urrun egon behar zuela beti itsasertzetik. Iñaki Iñurrieta

Asanblea Konstituziogilea **exijitu** dute alderdiek, eta erregearen asmoa baztertu. Berria - Mundua

Ez ditugu **exijitu** behar gure eskubideak euskaldunok ezberdinak garelako, baizik eta beste herriak bezalakoak garelako. Joseba Zulaika

Nazionalismo klasikoak subjektuaren mendekotasuna **exijitzen** du. Joseba Zulaika

Lotsagatik, Josebari ezer ez esatea **exijitu** zion. Patxi Zubizarreta

Foruzaingoaren eta Nafarroako Gobernuaren axolagabekeria salatu zuen taldeak, behin eta berriz; eta suhiltzaileak etor zitezela **exijitu** zuten, behin eta berriz. Edurne Elizondo

Borgoniako maiordomo egin zuten, eta **exijitu** zion Klotariori bizi artean ez zezala ken kargu hartatik. Iñaki Iñurrieta

Epai nazaten **exijitzen** dut! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egia da ordena politikoak edo zibilak seme-alabak aitaren oinordeko izatea agintzen duela maiz, baina ez du beti **exijitzen** hori horrela izan dadin. Iñaki Iñurrieta

Ekoizleek Europako Ikus-entzunezkoen Legea betetzeko **exijitu** zioten. Berria - Kultura

Tentazioa izan nuen bete-betean haren aurka oldartzeko, gora Aurorarekin hitz egitera joaten uzteko **exijituz**, Lucyren gaineko galderez josiz, emazteak bere nebari deitzeko zergatik zeukan horrelako izua azaltzera behartuz. Oskar Arana

Santuak Espiritu Santuaren eraginez bultzatuak izaten dira inoiz beren buruaz zenbait gauza harrigarri esatera: edo Jainkoaren aintzak hark adierazitako zerbait azaltzea

eskatzen duenean edota karitatearen betebeharrak lagun hurkoa eraikitzeko **exijitzen** duenean. Askoren artean

Errege-zentsua **exiji** dadin nahi dugu behinola legez **exijitzen** zen leku guztietan? Iñaki Iñurrieta

Laidoen zerrenda aletu nion: lehena, eta barkaezina, hainbat errezeta gaizki emana, batez ere potxak babarrun gorriak balira bezala idatzi zueneko hura; [...]; hirugarrena, oso irtenbide zaileko edo akaso irtenbiderik gabeko arazoen irtenbideak besteei larderiaz **exijitzea**. Jon Alonso

Ez da posible barkamena esplikatu edo **exijituko** duen irizpide bat. Joseba Zulaika

Garrantzitsua da legeek erlijio desberdin horiei, Estatuari oztoporik ez jartzea ez ezik, elkarri oztoporik ez jartzea **exijitzea**. Iñaki Iñurrieta

Batzordearen arabera, ez dute «**exijituko**» laguntzak hilabeteko lehenengo astean itzultzea. Berria - Ekonomia

Poetaren egitekoa hiri ideal bat **exijitzea** da. Joseba Zulaika

Asko **exijitu** behar diogu geure buruari. Berria - Kirola

Exijitzen badidate, gauzak hobeto egin ditzakedala uste dutelako izango da. Berria - Kirola

Irani argiki jakinaraziko genioke neurri ikaragarriak hartuko genituzkeela **exijitutakoa** beteko ez balu. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldatzeko exijitu (3); **amaitzeko exijitu** (5); **argitzeko exijitzen** (3); **askatasuna exijitu** (3); **askatasuna exijitzeko** (3); **askatzeko exijitu** (10); **askatzeko exijitzen** (3); **aske uzteko exijitu** (7); **asko exijitzen** (8); **asko exijitzen zaio** (3); **ateratzeko exijitu** (3); **aurkezteko exijitu** (3); **barkamena eskatzeko exijitu** (5); **bat exijitzen** (3); **behera uzteko exijitu** (10); **behera uzteko exijitzen** (3); **bermatzeko exijitu** (6); **berme guztiak exijitu** (3); **betetzeko exijitu** (11); **betetzeko exijitu zion** (3); **bilatzeko exijitu** (3); **dadin exijitu** (3); **desagertzeko exijitu** (3); **desarmea exijitu** (3); **dezala exijitu** (4); **dezala exijitzen** (3); **dezan exijitu** (3); **dezatela exijitzeko** (5); **dezaten exijitu** (3); **egitea exijitu** (12); **egitea exijitu zuen** (3); **egitea exijitzen** (5); **egiteko exijitu** (19); **egiteko exijitu die** (3); **egiteko exijitu diote** (3); **egiteko exijitzen** (7); **emateko exijitu** (10); **emateko exijitu zion** (3); **entregatzeko exijitu** (3); **eraginkorrak exijitu** (4); **ere exijitu** (10); **ere exijitu zuen** (3); **errespetatzeko exijitu** (4); **eskatzeko exijitu** (6); **eta exijitu** (4); **eteteko exijitu** (3); **exijitu behar** (21); **exijitu behar dio** (5); **exijitu behar dugu** (3); **exijitu beharko** (7); **exijitu die** (13); **exijitu diete** (10); **exijitu dio** (57); **exijitu diote** (25); **exijitu ditu** (3); **exijitu dituzte** (5); **exijitu dizkio** (4); **exijitu du** (42); **exijitu dugu** (3); **exijitu dute** (31); **exijitu eta** (8); **exijitu nahi** (3); **exijitu zidaten** (3); **exijitu zien** (20); **exijitu zieten** (15); **exijitu zion** (75); **exijitu zion atzo** (6); **exijitu zion psoeri** (3); **exijitu zioten** (33); **exijitu zioten atzo** (4); **exijitu zituzten** (5); **exijitu zuen** (52); **exijitu zuten** (41); **exijitzea ere** (3); **exijitzea eta** (5); **exijitzeko eskatu** (3); **exijitzeko eskubidea** (3); **exijitzeko moduan** (3); **exijitzen diegu** (4); **exijitzen dio** (11); **exijitzen diogu** (14); **exijitzen diogu etari** (3); **exijitzen diote** (7); **exijitzen ditu** (5); **exijitzen dituen** (3); **exijitzen dituzte** (3); **exijitzen du** (37); **exijitzen duela** (3); **exijitzen duen** (9); **exijitzen dugu** (11); **exijitzen dute** (20); **exijitzen dutela** (3); **exijitzen ez** (3); **exijitzen zaio** (6); **exijitzen zuen** (8); **exijitzen zuten** (5); **ezabatzeko exijitzen** (3); **gobernuari exijitu** (4); **gutxiago exijitu** (3); **guztiak exijitu** (3); **hartzea exijitu** (4); **hartzeko exijitu** (16); **hartzeko exijitu dio** (7); **ikertzeko exijitu** (3); **indarrean jartzeko exijitu** (4); **itzultzeko exijitu** (10); **itzultzeko exijitu zion** (4); **izatea exijitu** (4); **izateko exijitu** (3); **jartzeko exijitu** (12); **jaurlaritzari exijitu** (4); **konpromisoa exijitu** (3); **neurri eraginkorrak exijitu** (4); **neurriak exijitu** (4); **neurriak hartzeko exijitu** (7); **onartzeko exijitu** (5); **politikoa exijitzen** (3); **politikoa exijitzen du** (3); **sinatzeko exijitu** (4); **sortzeko exijitu** (3); **uzteko exijitu** (28); **uzteko exijitu dio** (4); **uzteko exijitu diote** (3); **uzteko exijitu du** (4); **uzteko exijitu zion** (3); **uzteko exijitu zioten** (3); **uzteko exijitu zuen** (4); **uzteko exijitzen** (9); **uzteko exijitzen diogu** (3); **zer exijitu** (4)

---

exilatu ik **exiliatu**.

---

exiliatu, exilia(tu), exiliatzen *(orobat **exilatu** g.er.)* **1** da/du *ad* arrazoi politikoak direla medio erbesteratu.

Ez nuen **exiliatu** nahi, baina ez nintzen gauza Engelsi arraunak kentzeko. Koldo Izagirre

Anjelek ETAkoa zen arreba bat zeukan, Mexikon **exiliatua**, Ordu hartan, Argeliako lehendakari ohia Parisen bizi zen **exiliatuta**. Mikel Hernandez Abaitua

Hainbat txapelketatan parte hartu ondoren, Genevan **exiliaturik** bizi zen errusiarra Dostoevskyren etzauntza izandakoan. Berria - Kultura

Mundutik kanpo, Iurrean **exiliaturik**. Itxaro Borda

Gurasoak Frantzian **exiliaturiko** errepublikarrak izateak pertsonalki asko markatu zaituela esan izan duzu. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Agian mereziko du testuinguru honetan Leo Strauss filosofo judu **exiliatuaren** kritikak gogoratzea, historizismoari ez ezen, Max Weber-en soziologismoari. Joxe Azurmendi

Siriako kurdu **exiliatuak** Europan protestak egiten "Min bat ene lurrari" errepika jotzeko isilka nere bihotz **exiliatu** honi, min bizi bat, zinezko min bat, faborez eta laborez, arrunt gogaitua bainauka aspaldi haundiko mintzuri ugalkor honen burrunbak. Guztiok gara iraganeko **exiliatu**, baina areago oraindik artistak. Patziku Perurena

Nafarroako azken erregina **exiliatua** bainintzen! Itxaro Borda

ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketek baketzea izango lukete hizpide: armak uzteari buruz eta preso, errefuxiatu eta **exiliatuen** egoerei buruz arituko lirateke. Berria - Euskal Herria

Askatasunak «Espainiak **exiliatuen** aurka darabilen jazarpena» salatu zuen, Moreno eta Garciaren aurkakoa, batik bat. Berria - Euskal Herria

«Euskal preso, deportatu, **exiliatu** eta errefuxiatu politikoen zein preso sozialen eskubide guztiak» errespetatzeko eskatu zuten. Berria - Euskal Herria

Preso eta **exiliatuak** etxean egoteak erakutsiko luke desmilitarizazio prozesua amaituta dagoela. Berria - Euskal Herria

Ibaiko urak kontsolagarri dira **exiliatuentzat**. Harkaitz Cano

---

exilio *iz* arrazoi politikoek eraginiko erbesteratzea; horrela erbesteratu denaren egoera.

Bera izan da bizi guzian **exilioa** ezagutu duen gizon bat, kanpoan bena bere herrian ere! Herria

67 urte bete dira Agirre lehendakariaren gobernuak **exiliora** joan aurretik azken gobernu bilera Euskal Herrian egin zuela. Berria - Euskal Herria

Azpimarratu nahiko nuke ere bai, Oihane atzerrian, **exilioan**, jaio zela, eta kartzelan, atzerrian ere, hil dela. Berria - Euskal Herria

Agirrek «gauza bera pentsatzen zuela Getxoko alkate izanik, Madrilen diputatu izanik eta Euskal Herrian zein **exilioan** euskaldunon lehendakari izanik». Berria - Euskal Herria

1942an **exilioan** hil zen Erraimun Olabide idazle, itzultzaile eta euskatzaina, eta gaur omenaldia egingo diote Gasteizen, bere jaioterrian. Berria - Kultura

Eta berriro, gaztaroaz geroztik, presoak, **exilioak**, torturak, eta beldurra. Joxe Azurmendi

Faxismoaren aurkako gerra galduak eragindako **exilioagatik**. Koldo Izagirre

Egia osoa zor dizut hala ere, eta ez dut neure burua justifikatzen: bikote eta kezka burges euskaldun jatorrak zituzten pertsonaiak sortzen nituen garai batean, baina **exilioak** aldatu ninduen eta gaur egun Lili Marlenen bulardi beltza baino ez daukat eredu. Itxaro Borda

Arafat **exiliotik** itzuli zenean, eta PAN abian jarri zutenean, esperantza zirrikitu bat piztu zen jendearengan. Berria - Mundua

Heriotik eta **exiliotik** nehor ez dela bizirik itzultzen. Itxaro Borda

1983an, Tunisiako **exiliotik** itzulitakoan PAE 1982an egotzi zuten Beirutetik, Arafati «agintekeria eta etsaiei aurre egiteko inkonpetentzia» leporatuta. Berria - Mundua

Berrogei urteko **exilioaren** ondoren, atzo itzuli zen Euskal Herrira Juan Astigarribia buruzagi komunista historikoa. Koldo Izagirre

Literatura, niretzat, imaginarioa aldaraztea da, eta nik Passages idatzi nuenean **exilioaren** ikusmen linelala hautsi nahi nuen, hau da, hil egiten duen **exilioarena**. Berria - Kultura

Hilabeteetan zehar Tjapukai Dancers taldearen *Heart Of My People* musika entzuten nuen, bihotz elektronikoaren taupadak neronen **exilioarenak** zirela itxuratuz. Itxaro Borda

Exilioko Gobernuko kideei, aldiz, 52 urteko zigorra ezarri zieten. Berria - Mundua

Jaun andreok, **exilioko** Eusko Jaurlaritzaren emisoraren irrati entzuleak. Berria - Kultura

Halatan, elurra mara-mara aritu zen larunbat gau batez, etengabeko **exilio** geldoaren menpe abandonatu gintuen. Itxaro Borda

Literatura onak beti eskatzen du **exilio** antzeko bat, ezin da ezer interesgarririk idatzi etxeko su bazter gozotik. Berria - Kultura

Ene **exilio**-bideak ahitu artean, anitzetan kalaka eta balakatu ginen. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta exilioa (3); **exilioan bizi** (4)

---

exiliogune *iz* exiliatze gunea.

Bilkurara bideratu arren, ezagunegiak zaizkidan eskualdeak etengabeko **exiliogune** zarpailez itxuraldatzen zaizkit. Itxaro Borda

---

existente *izond* existitzen dena, existentzia duena.

Horren bertsio gaurkotuaren arabera, "perpaus bat egiazkoa da *bsb* perpaus horrek gauza-egoera **existente** bat designatzen badu". Askoren artean

Gauza **existente** oro ezeztatu arren. Ibon Uribarri

"Idealak", honela "ideia orokorrak" izendatuz, ez direla **existenteak** edo ez-**existenteak**. Inguruko gorputzak presentetzat, *in actu* **existententzat** kontsideratzeko ahalbidea ematen dute soilik. Xabier Kintana

---

existentzia **1** *iz* existitzea.

Liburuak egiten duena munduaren ikuspegi berri bat sortzea baita: **existentzia** eta kontingentziaren arteko lotura. Monika Etxebarria

Izan ere, **existentzia** honek beste **existentzia** bat bilatzera behartzen baitzaituzte beti, bera beste **existentzia** honen menpean egonik. Ibon Uribarri

Kritikaren zati analitikoan frogatzen da espazioa eta denbora sentsuzko begiespenaren formak baino ez direla, beraz, gauzen **existentziaren** baldintzak besterik ez direla, hauek agerpenak diren heinean. Ibon Uribarri

Bi printzipioren **existentzia** defenditzen zuen: ongia eta gaitza. Imanol Unzurrunzaga

Hiru tesi teologiko kardinalak frogatzen ditu: Jainkoaren **existentzia**, bakartasuna eta gorpuzgabetasuna. Xabier Kintana

Jainkoaren **existentzia** eta Honen esentzia gauza bat eta bera dira. Xabier Kintana

Jainkoa ez da bakarrik gauzen **existentziaren** kausa arazlea, baina bai haien esentziarena ere. Piarres Xarriton

Urte askoan, Adelaren inguruan eratua nuen **existentzia**. Juan Kruz Igerabide

Russellen deskribapen zehaztuen interpretazioan **existentzia** ez da predikatua, kuantifikatzailea baizik. Askoren artean

Eremu diskurtsiboaren azterketa oso bestela dago orientatua; kontua da enuntziatua atzematea bere gertatzearen estutasunean eta singulartasunean; zehaztea bere **existentziaren** baldintzak, bere mugak finkatzea. Xabier Arregi

Gizakiaren bizitza **existentziaren** zirkunferentziaren ukitze-gunean ihesbide bat sortzeko ahalegina da. Juan Kruz Igerabide

Froga bidez zehazki ezar daiteke badela beharrezko **existentzia** duen zerbait, ez dela inoiz **existentziarik** gabea izan eta ez dela inoiz halakoa izango, frogekin argiro erakutsiko dudanez. Xabier Kintana

Ez bada existitzen, kausa bat edo arrazoiren bat izan behar da haren ez existitzeko edo hari **existentzia** kentzeko. Piarres Xarriton

Haren esentziak, nahitaez, bere baitan daukala **existentzia** edo, bestela, haren izaerari dagokiola existitzea. Piarres Xarriton

Horretan datza modu finituaren betiera: bere **existentzia**, jardutearen bitartez, bere esentziaren derrigorrezko ondorio bihurtzea. Piarres Xarriton

Aristotelesek ez du hutsunea onartzen, horren **existentziak**, espazio hutsaren ideiak, zentzurik ez daukalako harentzat. Askoren artean

Merkatu-egitura ez perfektuen **existentziak**, alabaina, merkataritza-politika oldarkorrak bultzatzen ditu. Koro Navarro

Bere **existentziari** eustera jotzen dute eta bere esentzia eratzen duten ahalmen-maila esplizitatzera. Piarres Xarriton

Nire **existentziaz** serioski harritzen hasia nintzen. Monika Etxebarria

Zein da nire **existentziaren** zentzua? Imanol Unzurrunzaga

Ahots lodi eta erlatsa bat-batean agertu da eta mundua, **existentzien** mundua desagertu egin da. Monika Etxebarria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Existentzia txiki iheslariak ditu bizilagun, txoriak adarretan bezala. Monika Etxebarria

Existentzia hutsa. Monika Etxebarria

Arau hauek objektuen erregimena definitzen dute, eta ez errealitate baten **existentzia** mutua eta, ezta ere, hiztegi baten erabilera kanonikoa. Xabier Arregi

Descartesek, hortaz, ez du zalantzarik izango bere **existentzia** propioan, **existentzia** hori res cogitans legez ulertzen badu ere. Askoren artean

Mendebaldeko mundua [...] historia sinikoan adituak direnengandik kanpo, apenas ohartu den Liu Pangen **existentzia** historikoaz. Iñaki Mendiguren

Mundu errealean **existentzia** fenomenikorik ez duen sinbolo baten "forma globalaren" zentzuan. Josu Zabaleta

Existentzia faktikoa fenomenologia. Askoren artean

Hala iristen da musikak, denborazko arterik baldin bada denborazkoena denak, zenbaitetan espaziozko **existentzia** duela esatera, sinfonia klasiko bat sekuentziaz sekuentzia atzematen baita. Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Diltheyren ekarpenari Sören Kierkegaard-en **existentzia**-larritasuna gehitu zion Martin Heideggerrek. Askoren artean

Eraketa-arauak banaketa diskurtsibo batean ematen diren **existentzia**-baldintzak dira. Xabier Arregi

Ahalbide-legeez eta **existentzia**-arauez, izendatzen edo deskribatzen diren objektuentzako baieztatzen edo ukatzen diren harremanetarako. Xabier Arregi

Existentzia-esakune horren oinarrian sentsazioa dagoela frogatzen du, zeina, ondorioz, sentimenari dagokion. Ibon Uribarri

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrenbestez, denborari giza **existentziaren** analisia hedatu zitzaion. Askoren artean

Gizarte-**existentzia** bat duelako, komunika daitekeelako, zirkula dezakeelako, sortzaileaz beraz gainera beste batzuek ere uler dezaketelako. Josu Zabaleta

5 ***ez-existentzia***

"Beste" nagusiaren **ez-existentzia** ekibalentzia honetan oinarritzen da. Joseba Zulaika

Haren esentzia, dauzkan neurri eta itxurarekin batera, nahitaezko existentziakoa da; ez du izaki erabakitzaile bat behar izan, ez eta existentzia nahiago izan dionik, **ez-existentzia** baino, Harengan **ez-existentzia** erabat ezinezkoa delako. Xabier Kintana

Zentzuek hautematen dituzten esentzietatik kanpoan nahitaez zerbait badela frogatu zaigunez gero, esentzia horien ezagutza adimenaren bidez besarkatuz, badiogu zerbait horretaz existitzen dela, eta horrek esan nahi du haren **ez-existentzia** ezin onartuzkoa dela. Xabier Kintana

Ezjakintasuna, ahanztura, ukazioa eta **ez-existentzia**; lotura hori apurtu behar dugu, amaierarik ez duen ikerketarekin. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atomoen existentzia (3); **bai existentziaren** (5); **bai existentziaren aldetik** (3); **baten existentzia** (16); **baten existentziaren** (4); **baten existentziaz** (3); **beharrezko existentzia** (9); **bere existentzia** (34); **bere existentziaren** (18); **bere existentziaz** (3); **beren existentzia** (4); **beren existentziaren** (3); **da existentzia** (4); **den eta existentzia** (4); **den existentzia** (3); **du existentzia** (4); **du existentziarik barne** (3); **du haren existentzia** (3); **duen existentzia** (3); **esentziaren bai existentziaren** (3); **eta existentzia** (24); **eta existentzia mugatua** (5); **eta existentziaren** (4); **eta haren existentzia** (3); **eta jainkoaren existentzia** (5); **existentzia adierazten** (5); **existentzia baieztatzen** (7); **existentzia baino** (7); **existentzia barne** (11); **existentzia barne hartzen** (10); **existentzia bat** (5); **existentzia baztertzen** (29); **existentzia baztertzen duen** (11); **existentzia baztertzen duten** (10); **existentzia bera** (12); **existentzia bera ere** (3); **existentzia berezi** (3); **existentzia edo** (10); **existentzia erabat** (3); **existentzia ere** (3); **existentzia eta** (22); **existentzia ez** (14); **existentzia ez da** (3); **existentzia ez dela** (3); **existentzia ez existentzia** (3); **existentzia ezeztatzen** (4); **existentzia ezin** (3); **existentzia ezinezkoa** (4); **existentzia frogatzeko** (4); **existentzia frogatzen** (3); **existentzia gorets** (3); **existentzia gorets bedi** (3); **existentzia hori** (3); **existentzia hotel** (4); **existentzia hotela** (8); **existentzia hotelaren** (3); **existentzia hotelera** (3); **existentzia hutsa** (3); **existentzia kentzen** (3); **existentzia modu** (3); **existentzia mugatua** (5); **existentzia mugatua duen** (4); **existentzia nahiago** (3); **existentzia nahiago izan** (3); **existentzia ukatu** (3); **existentzia ukatzen** (5); **existentzia**

ukatzen duen (4); **existentzia zalantzan** (4); **existentziak ez** (5); **existentziarako beharrezkoa** (3); **existentziaren aldetik** (8); **existentziaren berri** (4); **existentziaren bitartez** (3); **existentziaren eta** (6); **existentziaren froga** (4); **existentziaren kausa** (11); **existentziaren mailan** (3); **existentziaren zentzua** (4); **existentziarik barne hartzen** (3); **existentziarik ez** (5); **ez du existentziarik** (4); **ez existentzia** (12); **ez existentzia baino** (6); **gauza horren existentzia** (4); **gauzaren existentzia** (15); **gauzaren existentzia baztertzen** (8); **gauzen existentzia** (7); **gauzen existentzia baztertzen** (3); **gauzen existentziaren** (6); **giza existentziaren** (4); **gorputzaren existentzia** (8); **gorputzaren presenteko existentzia** (5); **gure existentzia** (8); **gure existentziaren** (5); **gure gorputzaren existentzia** (3); **guztien existentziaren** (3); **haien existentzia** (10); **haien existentziaren** (5); **haren existentzia** (34); **haren existentzia baieztatzen** (3); **haren existentzia eta** (6); **haren existentzia ez** (3); **haren existentziaren** (7); **haren existentziaren kausa** (3); **haren existentziaz** (3); **herriaren existentziaren** (3); **horien existentzia** (5); **horren existentzia** (14); **horren existentzia baztertzen** (3); **infinituaren existentzia** (3); **izpirituaren presenteko existentzia** (3); **jainkoaren existentzia** (46); **jainkoaren existentzia eta** (4); **jainkoaren existentzia gorets** (3); **jainkoaren existentziaren** (7); **jaungoikoaren existentziaren** (3); **munduaren existentzia** (5); **nire existentzia** (13); **nire existentziaren** (5); **presenteko existentzia** (16); **presenteko existentzia baztertzen** (7); **zaldiaren existentzia** (3); **zeinaren existentzia** (5)

---

existentziadun *izond/iz* existentzia duena.

Gorputz izan ez eta gorputzean aurkitzen ez dena ez da **existentziaduna**, gizakiaren lehen begiratuan, eta, batez ere, haren irudimenaren arabera. Xabier Kintana

Existentziadun batek ezin du inoiz ere justifikatu beste **existentziadun** baten existentzia. Monika Etxebarria

Geure buruaz deseroso, asperturik geunden **existentziadun** pila bat ginen, ez genuen han egoteko inongo arrazoirik, ez batzuek ez besteek, **existentziadun** bakoitza, nahasirik, nolabait urduri, sobran sentitzen zen besteen aldean. Monika Etxebarria

---

existentzial 1 *izond* existentziari dagokiona.

Erlijioaren ikuspegitik, ordea, Jainkoarekiko erlazioa ez da hain intelektuala, munduaren azalpen razionalari lotua, **existentziala** baizik: gizakiaren zorionarekin eta horrek azken helburua lortzearekin zerikusi zuzenagoa du. Askoren artean

Sakonean dugun arazoa **existentziala** da. Berria - Euskal Herria

Sakoneko asperdura, **existentziala**, haserrea ia. Eider Rodriguez

Desegokiak dira, bai ikuspegi biologikoa, bai psikologikoa, bai etiko-morala ere; ez da nahikoa Touretteren sindromeari aldi berean hiru ikuspegi horietatik so egitea, baizik eta barne-ikuspegitik, ikuspegi **existentzialetik**, gaixotasuna duenak berak duenetik. Xabier Olarra

Bultzatzaileak filosofia alemaniarraren periferian dauden pentsalariak ditugu, hots, orientabide kantiar, fenomenologiko, **existentzial** eta abarretik kanpo daudenak. Askoren artean

Bere bizitzari erabateko iraulketa eman aurretik, Frantziskok krisi **existentzial** sakona jasaten du, eta bilaketa-prozesu luze batean sartzen da. Askoren artean

Iran mehatxu «estrategiko eta **existentzial** serioa» dela baina «oso babestuta daudela» gaineratu zuen. Berria - Mundua

Jatorrizko ETAren pentsamendua eta jarrera **existentziala** ulertzeko, arazo bat da giltzarria: unibertsalaren irizpidea. Joseba Zulaika

Larritasun eta etsimen **existentzial** horrek Barojaren pertsonaia askorena ez ezik, egilearen beraren bilaketa intelektuala gidatzen du. Josu Zabaleta

Azken hiru igande haietan ez jokatzea baino gogorragoa eta jasangaitzagoa egiten zitzaidan antsietate **existentzial** neurrigabeko harekin jaiki behar izatea egunero. Joan Mari Irigoien

Rulforen paradigman kezka **existentziala** (zeinak biziaren mugetatik aurrera ere, hilen artean, kezka izaten baitirau) fatalismoz janzten da. Juan Garzia

Beti bezala, zalantza **existentzialek** enbarazu egin zioten erabakitzeko orduan. Patxi Iturritegi

Bizitzako egunik txarrena pasatu nuen, bertigo **existentzial** handi batek hartuta. Joan Mari Irigoien

Hustasun **existentziala** zorrotz azaltzen du Mikel Lasak, dioelarik: "Jainko hotza daukat ariman". Juan Kruz Igerabide

Eduki **existentzialez** betetako galderak dira, hainbesteraino non Agustin existentzialistatzat edota existentzialismoaren aitzindaritzat ere hartua izan baita behin baino gehiagotan. Imanol Unzurrunzaga

Diskurtso estetikoa, hots, **existentziala**. Edorta Jimenez

Hark budismoaren baitan bideratu zuen bere ezinegon **existentziala**, budismo berezi eta bere erarako baten baitan, eta hortik zetorkion bakea eta sosegua. Juan Kruz Igerabide

Arazo **existentzialari** erantzun estetikoa, estetiko-politikoa emateko prest. Iñaki Iñurrieta

2 (logikan)

Laburpen moduan dago erabilita, kuantifikatzaile unibertsal eta **existentzialaren** artean lehenago definitutako baliokidetza dagoela kontuan hartuz: Askoren artean

---

existentzialismo *(orobat **existenzialismo** g.er.) iz* gizabanakoaren existentziaren garrantzia filosofikoa nabarmentzea; giza existentziari, zerizanaren gainetik, lehentasuna ematen dion filosofia dotrina.

Haren pentsamenduaren tesi nagusiak laburbiltzen dituen ***Existentzialismoa*** *humanismo bat* da liburuan Mendebaldeko etika guztia goitik behera zalantzan jartzen du. Askoren artean

Existentzialismoari ezkortasun ikaragarria ikusten nion, baina baita itxaropen argi txiki bat ere. Ana Urkiza

Batzuetan, **existentzialismoaren** angustia-kutsua darie komunetako idazkiei. Joxerra Garzia

Existentzialismoaren atmosferan hazi ginenok bederen, balioen oinarriztapen razional absolutu bat ez dugu inola posible ikusten, baina haren premiarik ere ez dugu sentitzen ezertarako. Joxe Azurmendi

Batzuetan, **existentzialismoaren** angustia-kutsua darie komunetako idazkiei. Joxerra Garzia

Ez da ahaztu behar ETAren formazio ideologikoan Europako pentsamendu joera berriak nagusitu zirela, ateismotik **existentzialismora**, marxismotik maoismora, antikolonialismotik nihilismora. Joseba Zulaika

Salamancan, krisi erlijiosoak pitzatua, filosofia positibistatik kontrariora konbertitu den bezala (**existentzialismorantz**, formula labur batekin esateko), Unamuno etorkizunetik ere iraganera konbertitu da. Joxe Azurmendi

Poesiak, aldiz, **existentzialismo** garaikideari heldu dio, norbanakoaren eta munduaren, gizartean arteko talka edo gatazka azaleratuz Heideggerren eragina nabaria zen Europako pentsalari existentzialistengan: Karl Jaspers-en psikologia existentzialistan, Emmanuel Lévinas-en beste (lako) aren ontologian, José Ortega y Gasset-en raziobitalismoan, Gabriel Marcel-en **existentzialismo** kristauan, Emmanuel Mounier-en pertsonalismoan eta, jakina, Jean-Paul Sartre-ren **existentzialismo** humanista ateoan. Berria - Kultura

Erlijioko kezkak, **existentzialismo** kezkak. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

existentzialismoa humanismo bat (5)

---

existentzialista 1 *izond* existentzialismoarena, existentzialismoari dagokiona.

Arantxa Urretabizkaiaren lana deskribatzerakoan intimismoaz hitz egin da, baina *Saturno,* adibidez, **existentzialista** da. Ana Urkiza

Jertse beltz bat zeraman (oso ongi gogoratzen naiz), zisne-lepoduna, **existentzialista**-edo. Joxe Austin Arrieta

Leturiaren egunkari guztia analisi **existentzialista** hori besterik ez da funtsean, arretaz irakurtzen duenarentzat. Joxe Azurmendi

Borondatearen subjektu **existentzialista** (Sartre) eta pertsonalista (Mounier) hartzen du ekintzaren zutabetzat. Joseba Zulaika

Nazismoari atxiki arren, Heideggerren eragina nabaria zen Europako pentsalari **existentzialistengan**. Askoren artean

Karl Jaspers-en psikologia **existentzialistan**. Askoren artean

Bertan laburbildurik aurki daitezke bai konpromiso kristauaren betebeharrak, bai azken modernotasun **existentzialistaren** askatasuna "jainko" izatearenak; bai San Ignazio eta bai Sartre. Joseba Zulaika

Narrazioak bi ipuin ditu oinarri: "Kain" (1949-1950), kutsu **existentzialistakoa**, suizidioa duena muina, eta "Tren-geltoki motela" (1953), ostatuko historia baten antzekoa. Fernando Rey

2 (izen gisa) existentzialismoaren aldekoa den pertsona.

"Askatasuna" esaten zenean, askatasun politikoa ulertzen zen gehienbat, baina Sartreren eta beste **existentzialisten** obran (gogoratu hemen, adibidez, ETAren fundatzaileetako baten nobelak, Txillardegirenak), hitz horrek bazuen karga filosofiko berezia, modernitatearekin bakarrik uler zitekeena. Joseba Zulaika

Hrabal, hortaz, **existentzialista** bat da, gainerako gizon-emakumeen bitartez bere buruari galderak egiten dizkiona. Fernando Rey

---

existenzialismo ik **existentzialismo**.

---

existiarazi, existiaraz, existiarazten du *ad* existitzera behartu.

Enuntziatua da zeinu-multzo horiek **existiarazten** dituena eta arau horiei edo era horiei eguneratzea baimentzen diena. Xabier Arregi

---

existitu, existi(tu), existitzen *(orobat **esistitu** g.er.)* **1** da *ad* izatasun motaren bat izan. ik **izan**[1].

Ez dela jainkorik, edo ez dela **esistitzen**, edo hila dela. Iñaki Segurola

Erabaki nuen burdin hagak ez zirela gehiago **esistitzen**. Berria - Kultura

OLATX mundura jaio zen egun berean arnasarik hartu ezinez ito zen umeari; ordu batzuk bixirik pasa eta, bere gorputzñoa bertan urtu beldurrez, ixiltxorik lurpean utzia izan zenari; ez legekizun eta ez elizkizun, inon ofizialki pertsonatzat ezagutua ez izanik, **esistitu** ere egin ez den aingeruari. Iñaki Segurola

Totalitarismoak eta Holokaustoak ez dute aipurik txikiena merezi; nazismoak ekarri duen gerra eta Alemaniaren txikizio totala "katastrofe" natural bat da [...]; esperimentu nazista terrorezkoa ez da nonbait **esistitu**. Joxe Azurmendi

Zuek, adibidez, ez zarete **esistitzen**: bizi bai, bizi zarete nigan, eta nola gainera?, baina **esistitu** ez, edo **esistitzekotan** argazki huts gisa; hargatik ezin naiz mintzatu zuen kontra, baina bai, jakina, neure buruaren kontra. Iñaki Segurola

Bene-benetan, ba al dira?, **esistitzen** al dira?; eta zer dira? Iñaki Segurola

Behartutako langileak **esistitu** ziren. Berria - Euskal Herria

Mamuak andretxo kaskarinen buruan baino ez dira **esistitzen**! Koldo Biguri

Ekonomian ez dago joaniko esperientziak errepetitzerik: 1936, 1944, 1958 behin bakarrik **esistitu** ziren -eta **esistituko** ere-: Historia ez dago ekonomistek beren ekuazioak noiz prest edukiko zain. Iñaki Heras

Hobe du gainera, Jainko delako horrek, **esistitu** gabe: argibide latzak eman beharko lizkidake! Koldo Izagirre

IRA oraindik **esistitzea** eta oraindik aktiboa zeneko susmoa unionistek aurrerapenak trabatzeko hartu zuten justifikazioa bilakatu ziren. Berria - Mundua

2 (du aditz gisa)

Amari laguntzeko **esistitzen** du aitak. Arantxa Iturbe

Hala, euskaldun gehienentzat letrak **esistitu** ez duten artean, guti batzuentzat Estatuko burokrazi eta erlijioari gogorki lotuak zeuden (daude). Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baita existitu (4); **baitezpada existitu** (3); **bat existitu** (4); **benetan existitu** (6); **beti existituko** (3); **betidanik existitu** (3); **da existitu** (6); **ere existitu** (3); **ere existituko** (5); **eta existitu** (3); **existitu ahal** (4); **existitu arren** (3); **existitu behar** (20); **existitu behar da** (4); **existitu edo** (3); **existitu edo ez** (3); **existitu egiten** (7); **existitu ere** (17); **existitu ere egin** (3); **existitu ere egiten** (5); **existitu ere ez** (5); **existitu eta** (5); **existitu eta bizi** (3); **existitu ez** (23); **existitu ez balitz** (3); **existitu ez den** (5); **existitu ez zen** (7); **existitu gabe** (5); **existitu izan** (6); **existitu izan ez** (4); **existitu ote** (6); **existitu ote zen** (3); **existitu zela** (6); **existitu zen** (4); **existituko balitz** (10); **existituko balitz bezala** (3); **existituko dela** (3); **existituko ez** (27); **existituko ez balira** (4); **existituko ez balitz** (15); **ez da existitu** (4); **ez litzateke existituko** (4); **ez zen existitu** (3); **hori existituko** (3); **inoiz existitu** (18); **inoiz existitu ez** (11); **jesu kristo existitu** (4); **kristo existitu** (4); **kristo existitu zela** (3); **litzateke existituko** (4); **sekula existitu** (6); **sekula existitu ez** (3); **soilik existitu** (3); **zen existitu** (3)

baten existitzeko (4); **dagokio existitzea** (3); **eta existitzeko** (3); **existitzea eta** (4); **existitzeari utzi** (4); **existitzeari utziko** (3); **existitzeko arrazoia** (3); **existitzeko eskubidea** (3); **existitzeko eta** (3); **existitzeko indar** (3); **existitzeko kausa** (6); **existitzeko modu** (3); **ez existitzea** (7); **ez existitzeko** (4); **haren existitzeko** (3)

actu existitzen (6); **actu existitzen den** (6); **aktuan existitzen** (20); **aktuan existitzen balitz** (3); **aktuan existitzen den** (12); **aktuz existitzen** (3); **aldi berean existitzen** (3); **arte existitzen** (3); **at existitzen** (5); **aurretik existitzen** (3); **baina existitzen** (4); **baino existitzen** (3); **baita existitzen** (11); **baitan existitzen** (14); **baitan existitzen den** (6); **baitezpada existitzen** (6); **baitira existitzen** (4); **baizik existitzen** (4); **baizik existitzen ez** (3); **bakarrik existitzen** (11); **bakarrik existitzen da** (3); **bakarrik existitzen zen** (3); **bat existitzen** (23); **bat existitzen da** (4); **bat existitzen dela** (11); **batera existitzen** (8); **batera existitzen diren** (3); **benetan existitzen** (14); **benetan existitzen den** (3); **bera existitzen** (7); **bera existitzen dela** (3); **bere baitan existitzen** (9); **berean existitzen** (4); **berean existitzen direla** (3); **berez existitzen** (7); **beti existitzen** (4); **bezala existitzen** (5); **da berez existitzen** (3); **da existitzen** (100); **da existitzen eta** (3); **da existitzen ez** (3); **dagoeneko existitzen** (8); **dagoeneko existitzen diren** (3); **dagoeneko existitzen ez** (3); **dela existitzen** (41); **dela existitzen dakigun** (4); **dela existitzen eta** (3); **delako existitzen** (5); **denboran existitzen** (3); **deus existitzen** (3); **dira existitzen** (28); **direla existitzen** (9); **du existitzen** (3); **duk existitzen** (3); **ea existitzen** (3); **edo existitzen** (6); **egiaz existitzen** (4); **egintzan existitzen** (3); **egun existitzen** (3); **ere existitzen** (19); **ere existitzen dela** (3); **ere existitzen dira** (3); **ere existitzen ez** (5); **errealitatean existitzen** (3); **esker existitzen** (5); **eta existitzen** (14); **eta existitzen den** (5); **euskal herria existitzen** (3)

existitzen ahal (6); **existitzen ahal ez** (3); **existitzen al** (6); **existitzen al da** (6); **existitzen bada** (11); **existitzen badira** (3); **existitzen baitira** (3); **existitzen baldin** (6); **existitzen baldin bada** (3); **existitzen balitz** (4); **existitzen balitz bezala** (4); **existitzen da** (103); **existitzen da eta** (4); **existitzen dakigun** (4); **existitzen dela** (76); **existitzen dela eta** (7); **existitzen delako** (10); **existitzen den** (113); **existitzen den beste** (3); **existitzen den bezala** (3); **existitzen den era** (3); **existitzen den eta** (6); **existitzen den gauza** (8); **existitzen den gorputz** (3); **existitzen den gorputzaren** (5); **existitzen den guztia** (7); **existitzen den zerbait** (5); **existitzen dena** (15); **existitzen denari** (4); **existitzen denez** (7); **existitzen denez gero** (3); **existitzen denik** (11); **existitzen denik ere** (3); **existitzen dira** (25); **existitzen direla** (28); **existitzen diren** (52); **existitzen diren gauzen** (8); **existitzen direnak** (6); **existitzen eta** (11); **existitzen ez** (137); **existitzen ez bada** (10); **existitzen ez dela** (5); **existitzen ez delako** (6); **existitzen ez den** (42); **existitzen ez dena** (7); **existitzen ez denez** (4); **existitzen ez diren** (16); **existitzen ez zen** (12); **existitzen ez ziren** (5); **existitzen gara** (4); **existitzen irauteko** (3); **existitzen jarraituko** (3); **existitzen naiz** (24); **existitzen naizela** (10); **existitzen ote** (9); **existitzen ote zen** (4); **existitzen zela** (9); **existitzen zen** (16); **existitzen zenik** (4); **existitzen zirela** (5); **existitzen ziren** (5)

ez baita existitzen (10); **ez baitira existitzen** (4); **ez da existitzen** (97); **ez dela existitzen** (41); **ez delako existitzen** (3); **ez dira existitzen** (27); **ez direla existitzen** (9); **ez du existitzen** (3); **ez duk existitzen** (3); **ez existitzen** (5); **ez gara existitzen** (7); **ez nintzen existitzen** (3); **ez zela existitzen** (3); **ez zen existitzen** (22); **ez zirela existitzen** (3); **ez ziren existitzen** (4); **gara existitzen** (7); **gauza bat existitzen** (4); **gauzak existitzen** (4); **gisa existitzen** (8); **gisa existitzen da** (4); **giza trafikoa existitzen** (3); **gorputza existitzen** (3); **halabeharrez existitzen** (4); **heriotza existitzen** (4); **herria existitzen** (3); **hori existitzen** (9); **hori existitzen den** (3); **horiek existitzen** (4); **in actu existitzen** (6); **jada existitzen** (8); **jada existitzen ez** (3); **jadanik existitzen** (6); **jainkoa existitzen** (5); **moduan existitzen** (3); **mundua existitzen** (4); **nahitaez existitzen** (6); **nahitaez existitzen den** (3); **ni existitzen** (4); **ni existitzen naiz** (3); **ni pentsatzen existitzen** (3); **nintzen existitzen** (3); **orain existitzen** (4); **oraindik existitzen** (4); **oro existitzen** (4); **pentsatzen existitzen** (3); **soilik existitzen** (13); **soilik existitzen da** (3); **trafikoa existitzen** (3); **trafikoa existitzen dela** (3); **zela existitzen** (3); **zen existitzen** (23); **zerbait existitzen** (3); **zergatik existitzen** (4); **zirela existitzen** (3); **ziren existitzen** (4)

batean existitzera (4); **batean existitzera eta** (3); **existitzera eta** (15); **existitzera eta ekitera** (6); **existitzera eta modu** (3); **zehatz batean existitzera** (4)

---

existitze *iz* izatasun motaren bat izatea.

Ametsik eta esnaerarik gabeko loan etzatea?; zendu eta **esistitze** hutsean erortzea?; behingoz oreka oso-osoa lortzea? Iñaki Segurola

---

exitazio *iz* kitzikadura.

Halako **exitazio** bat pizten zion ideia horrek. Ramuntxo Etxeberri

---

exkax **1** *izond adkor* eskasa.

Bibote **exkaxa** zuen, hankak hezur eta azal, sabela zepelin bat baino handiagoa, albondiga bat ematen zuen bi txotxen gainean. Karlos Zabala

Hitz-joko horrek pulamentu **exkaxa** adierazteko tankera guztia dauka. Pello Zabala

Ekarriko ditut neronek horrek jaten dituen gauza **exkaxak**. Koro Navarro

Eta ez da jainkoen edo Venusen gezien ondorio inoiz itxura **exkaxeko** andretxoa ere maitatua izatea. Xabier Amuriza

Nola izan gaitezke horren atzeratuak, horren itsuak, horren **exkaxak**? Karlos Zabala

Gizakion arteko harremana gero eta hotzago, gero eta urrunago, gero eta **exkaxagoa** dela hirietan, alegia, eta animaliekin ez ote duten zenbaitek maitasun premia ase nahi izaten. Joxerra Garzia

Apezpiku berria etorri zelarik **exkas** aire bat aurkitu zion misionesten elkarte horri, hoinbeste apez zeukan diosesa batentzat. Xipri Arbelbide

Ez dakit zuek, nik eginak baititut kontuak, eta horixe dagokio Kanti: ordu bete **exkax**, gehien jota. Joxerra Garzia

Ona zen, baina **exkaxa**. Joxan Elosegi

Amets eder eta xoramendu aberasgarri izan behar zuen xedea, merkatuko xikana-mikanen bururatze hertsi eta **exkaxaren** gainean dira ondarrean ahal bezala konpondu, gerokoak geroko. Herria

Aginagan hiru tanto **exkaxez** irabazi zuten lemoarrek eta Hernanin 51na bukatu zuten amezketar eta azpeitiarrek, baina Amezketa 2 partida irabazteagatik doa aurrera. Berria - Kirola

2 (adizlagun gisa)

Exkax omen dago lana, eta **exkax** dagoena balio handiko bihurtzen du eskaintza-eskaeraren legeak. Joxerra Garzia

Aurpegia zurbil, betzuloak sakon, bluxa urdin hura **exkax**, orrazkera bera xarmagabe. Txillardegi

Bizi, gaizki eta **exkax**; hortaz, ez bizitzen utzi. Markos Zapiain

3 ***exkax izan*** *adkor* eskas izan, falta izan.

Eskura dute hemen azken egunetan **eskas izan** duzuena. Xabier Montoia

Hori da nik Oteizari gehien estimatzen diodana: herri txikiok hain **exkax** izan ohi ditugun autokonfiantza eta autoestimua bermatu izana. Joxerra Garzia

Batzuk atal baten **eskas dira**. Xabier Montoia

Zuhaitz eta landare, harria ez den ororen **eskas diren** mendietan gaindi. Xabier Montoia

Eta gure gizonak, hain zuzen, horixe bide zuen **exkax**, zerbait behar eta: izena. Joxerra Garzia

Bestelako lana, izan ere, lan borondatezkoa, auzolana, hori ez baita batere **exkax**. Joxerra Garzia

---

exkaxkume *izond adkor* eskasa.

Ez gogo onez, baina azkenerako etsi egin zuen **exkaxkume** honek. Iñaki Segurola

---

exkaxkumetu, exkaxkume(tu), exkaxkumetzen du *ad* exkaxkume bihurtu.

Horrenbesteraino gaixoberatu eta **exkaxkumetu** al gara denok ere? Iñaki Segurola

---

exkaxtu, exkax(tu), exkaxten da/du *ad adkor* eskastu.

Geroztik hona, majo xahartu, ihartu, **exkaxtu** da gajoa: hezurrak bigundu, azala zuritu, indarrak ahuldu zaizkio, Miserikordiara bidaltzeko errairik ez, eta seme-alabek txandan-txandan aldi baterako etxean hartzen duten atso zahar errukigarri baten gisa dabil gaur behiala hain eder izandako dama hura: iragana beste etorkizunik gabe. Joxerra Garzia

Hemen gabiltza denok elkarrekin zuri-zuri, haurridetasun eri batean itoak, guk geuk gure geurekikoa gutartuz eta geuretartzakotuz: horretarainoxe **exkaxtu** gaitu Etsaiak, edo etsai bat izan beharrak. Iñaki Segurola

---

exklusibo ik **esklusibo**.

---

exobiologia *iz* bizi estralurtarraren estudioa.

Carl Saganen *Ez Gaude Bakarrik Unibertsoan* **exobiologiako** irakaspena. Itxaro Borda

---

exodo **1** *iz* herri baten edo pertsona multzo jendetsu baten emigrazioa.

Estatu globalaren aurrean **exodoa** eta desertzioa praktika daiteke, eta bizitza eta kultur alternatibetan gauzatu, kontrabotereak eratuz, bizitzeko molde independenteak sortuz. Berria - Kultura

«Ez dut ijitoen **exodo** masiboa espero», zehaztu zuen Makisek. Berria - Mundua

Nekazarien **exodoarekin** batera, eztanda horrek -azpigarapenaren interpretazio klasikoek diotenez -, gutxieneko mailan mantentzen ditu soldata errealak. Koro Navarro

Segi kolpeka Europa gotorlekuko harresietan hauxe duzu 21. mendearen **exodoa**! Paddy Rekalde

Espainia eta Portugal EBn sartu zirenean **exodoaren** mamua zabaldu zen ere, baina urteek agerian jarri dute gehiago izan direla urteotan beren jaioterrira itzuli diren herritarren kopurua ihes egin dutenena baino. Berria - Mundua

Exodo berria, diaspora. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hamar egunez egon dira **exodo** agortezin honi begira. Josu Zabaleta

Azkaratek esan zuenez, «inoiz ezagutu dugun euskaldunon **exodorik** handiena sortu zuen» [1936ko gerrak]. Berria - Euskal Herria

2 israledar herrirena, Bibliako bigarren liburuan kontatzen dena.

Musulman, kristau eta juduek, bestalde, historiako unerik garrantzitsuenak Jainkoak egindako ekintzen arabera gogoratzen dituzte **exodoa**, Jesukristo jaio zen eguna, eta abar. Berria - Gaiak

---

exodontzia *iz* hortz edo hagin bat ateratzea helburu duen operazio kirurgikoa.

Aho-hortzetako osasunaren barnean honako hauek sartuko dira, gutxienez: ahoa garbitzea, ortodontziak, enpasteak, periodontzia, **exodontzia** eta protesiak. Berria - Euskal Herria

---

exogamia *iz* arraza edo etorki desberdinetako kideen arteko batze sexuala.

Antropologoarentzat, intzestuaren debekuak eta **exogamiak** paper nagusi bat jokatzen dute: lotura bat ezartzen dute gizakien artean, halakoa non haren faltan haiek ez bailirateke gai izango antolaera biologikoa gainditu eta antolaera soziala erdiesteko. Juan Garzia

---

exogeno *izond* kanpokoa dena, kanpoan gertatzen edo sortzen dena.

Bi arazo mota daude gaur egun kolektibo horretan: arazo endogenoak eta **exogenoak**. Berria - Euskal Herria

Modu horretan, autoritate **exogeno** batek, Jainkoak, arau moral absolutuak, Hamar Aginduak, ezartzen dizkigu. Askoren artean

Aurreneko aldiz, aldi berean eta modu berean ia, krisi **exogeno** baten eraginpean geratu ziren herrialde industrializatu guztiak. Koro Navarro

Zeinen garrantzitsuak diren, kapitalen sarbidea huts-hutsik **exogenoa** denean, sarbide horrekin batera gertatzen diren baztertze fenomenoak. Koro Navarro

Lehen **exogenotzat** hartzen zen gai andana zientziaren ikerketaren jo puntuan kokatzen da bete-betean. Askoren artean

---

exomediku *iz* mediku externoa.

2058an Gasteizko Instrukzioko seigarren epaitegiak Isham Rashafi zigortu zuen, bi urteko kartzelara, Antton Bereziartu eta Ekaitz Armesto bere lagunekin batera, Agon Saron 23B-34 Gasteizko hiritarrari tentakulu bat labanaz mozteagatik; tentakulu hura, gainera, ez zen birsortzera heldu, Santiago ospitaleko **exomedikuek** espero bezala. Iban Zaldua

---

exonerazio *iz* norbait kulpa, karga edo erantzukizun batetik libre uztea.

Bat aipatzeko,1336an, Brabanteko dukeari bere aitak agindutako **exonerazioa** eskatu zion Liejako San Agustin elizak. Patziku Perurena

---

exonomastika *iz* atzerritar izenen onomastika.

Dialektologia batzordeko burua zen, gramatika eta **exonomastikaz** ere arduratuz. Herria

Dialektologia Batzordeko burua zen, eta Gramatika Batzordeko eta **Exonomastika** Azpibatzordeko kidea, besteak beste. Berria - Kultura

---

exoplaneta *iz* eguzki sistematik kanpoko planeta.

90eko hamarkadatik 170 **exoplaneta**, hau da, Eguzki sistematik kanpoko planeta, aurkitu dituzte. Berria - Gaiak

---

exortatibo ik **esortatibo**.

---

exortzismo ik **exorzismo**.

---

exortzista ik **exorzista**.

---

exortzitatu ik **exorzizatu**.

---

exorzismo *(orobat **exortzismo** g.er.)* **1** *iz* deabrua edo izpiritu gaiztoak egozteko erlijio praktika edo erritoa.

Arreta handiz ari ziren entzuten Anastasie esaten ari zitzaiena, alegia, bezperan bertan Beaufleury apaiz jaunak bost deabruk hartua zeukaten emakume bati nola egin zion **exorzismoa**. Josu Zabaleta

Eliz-jantziz azaldu zen, elizakoak ematera bezala, eta eskuak luzaturik **exorzismoak** esan zizkion, lau gizonen artean emakumeari, ahobitsetan eta bihurrika, ohean eusten zioten bitartean. Josu Zabaleta

Lizunkeriaren deabruengandik askatu nahiz zebiltzan gorteko hainbat emakumerekin **exorzismo** luzeak egiten zituen bere egoitzako egongelako sofan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Exorzismo saioak pairatu behar izan nituen. Joxan Elosegi

San Frantziskori, denekin hain ezti ageri ohi zenari, iruditu zitzaion **exorzismo** hauxe zela egokiena "gezurraren aita" uxatzeko eta biderik onena, umorezko ateraldi batez, anai Rufinoren bihotz abaildua arintzeko. Askoren artean

Hans-Christian Schmiden Requiem filma, berriz, 70eko hamarkadan Alemanian gertatutako **exorzismo** kasu batean oinarrituta dago. Berria - Kultura

2 irud/hed

Tisikoa zen aitona, eta beti pentsatu izan dut aitonaren arropa eta koltxoia erretzea, eta, bide batez, Putierre delako haren ipurdia, tisiaren kontrako **exorzismo** modu bat zela. Anjel Lertxundi

ez zabaltzeko (22); **ez zagok** (239); **ez zagon** (45); **ez zaidak** (92); **ez zaidala** (62); **ez zaidan** (61); **ez zaie** (402); **ez zaie falta** (22); **ez zaiela** (104); **ez zaien** (45); **ez zaigu** (289); **ez zaik** (85); **ez zaio** (1085); **ez zaio arrazoirik** (23); **ez zaio axola** (27); **ez zaio batere** (30); **ez zaio falta** (38); **ez zaio gustatzen** (33); **ez zaiola** (191); **ez zaiolako** (28); **ez zaion** (113); **ez zaiona** (64); **ez zaiona egin** (40); **ez zait** (1012); **ez zait axola** (41); **ez zait batere** (69); **ez zait gustatzen** (84); **ez zait inporta** (30); **ez zait interesatzen** (27); **ez zait iruditzen** (81); **ez zaitez** (357); **ez zaitez joan** (25); **ez zaitez kezkatu** (25); **ez zaitezela** (37); **ez zaitezen** (34); **ez zaitezte** (63); **ez zaitu** (124); **ez zaitudala** (22); **ez zaitugu** (30); **ez zaitut** (227); **ez zaituzte** (62); **ez zaituztet** (42); **ez zaitzala** (29); **ez zaitzatela** (27); **ez zaitzaten** (25); **ez zaizkie** (43); **ez zaizkigu** (43); **ez zaizkio** (144); **ez zaizkiola** (29); **ez zaizkion** (23); **ez zaizkit** (115); **ez zaizkit gustatzen** (23); **ez zaizu** (251); **ez zaizu iruditzen** (30); **ez zaizue** (55); **ez zaizula** (25); **ez zakiat** (240); **ez zakiat zer** (26); **ez zakinat** (64); **ez zan** (41); **ez zara** (868); **ez zara zu** (24); **ez zarela** (132); **ez zaren** (27); **ez zarete** (205); **ez zatekeen** (38); **ez zatoz** (22); **ez zaude** (125); **ez zaukaat** (26); **ez zebilela** (27); **ez zebilen** (158); **ez zebilen inor** (22); **ez zedin** (362); **ez zegoan** (42); **ez zegoela** (885); **ez zegoela eta** (33); **ez zegoela han** (23); **ez zegoelako** (142); **ez zegoen** (3027); **ez zegoen batere** (47); **ez zegoen beste** (65); **ez zegoen dudarik** (27); **ez zegoen ezer** (70); **ez zegoen han** (65); **ez zegoen inolako** (30); **ez zegoen inor** (76); **ez zegoen jada** (22); **ez zegoen jakiterik** (23); **ez zegoen oso** (37); **ez zegoen prest** (25); **ez zegoen zalantzarik** (26); **ez zegoenean** (61); **ez zegoenez** (83); **ez zegok** (159); **ez zegokion** (40); **ez zegon** (46); **ez zekarren** (44); **ez zekian** (25); **ez zekiat** (240); **ez zekiat zer** (28); **ez zekiela** (401); **ez zekiela esan** (23); **ez zekiela geratu** (26); **ez zekielako** (41); **ez zekien** (1144); **ez zekien ezer** (39); **ez zekien nola** (37); **ez zekien non** (23); **ez zekien zer** (173); **ez zekien zergatik** (31); **ez zekiena** (33); **ez zekinat** (67); **ez zekion** (25); **ez zekitela** (109); **ez zekiten** (296); **ez zekiten zer** (33); **ez zela** (3513); **ez zela batere** (47); **ez zela beharrezkoa** (22); **ez zela bere** (33); **ez zela eta** (37); **ez zela ezer** (27); **ez zela hain** (30); ez zela

---

ezabaezin *izond* ezin ezabatuzkoa.

Aurrerantzean, termino kimikotan irarrita egongo da arrisku horixe bakoitzaren genoman, norberaren osagai **ezabaezin** gisa. Juan Garzia

Aizkolari zaharra jelatuta geratu da, hotzez hildakoen irribarre **ezabaezina** ezpainetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tinta isurkorregia badute, lumaren muturretik ihes egin ohi du hark, eta alkandora-poltsikoetan orban **ezabaezina** utzi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Agindu zuen jauregiko Historia liburuetan tinta **ezabaezinez** idatz zezatela. Patxi Zubizarreta

Tabako-zetaka horixka **ezabaezin** bat gelditu zen. Alberto Ladron Arana

Praken albo banatan olio gorrizko pinturazko orban luze eta **ezabaezinak**. Urtzi Urrutikoetxea

Oroipen **ezabaezina**, amonak futbolera lehen aldiz eraman ninduenekoa, umemoko bat nintzenean! Joan Mari Irigoien

Denboraren arrasto **ezabaezinak**. Karlos Linazasoro

Amon jainkoak berak ere ez zuen jakin ahal izan, agian, ganbeluen gorotzek egingo zutela **ezabaezina** eta betirakoa bere izena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Elkarrekikoa den maitasun horren aztarnak **ezabaezinak** dira. Berria - Ekonomia

Pinocheten hatz-aztarnak hilketa bakoitzean daude, **ezabaezinak** dira eta Auzitegiak ikusi egin ditu. Berria - Mundua

Bada **ezabaezinezko** desberdintasun bat irudi finkoaren eta irudi mugikorraren artean. Josu Zabaleta

Garbi zegoen Mendebalde modernoko gizakia markaturik zegoela zitalkeria **ezabaezinezko** bi krimen egiteagatik. Iñaki Mendiguren

---

ezabaezinkiro *adlag* ezin ezabatuzko moduan.

Ez du edozein tratatu orri-pasaka gainbegiratzea besterik, eta oroitzapenak mordoka datoz: bada gure artean bere patua **ezabaezinkiro** bromoari edo propilenoari -NCO

taldeari edo azido glutaminikoari loturik eduki duenik. Juan Garzia

ezabagaitz *izond* ezabatzen zaila dena, ia ezabaezina.

Hik ezin duk ikur **ezabagaitzen** kritika egin, burua argituko hiekeelako hemengo nazi guztiei. Koldo Izagirre

Urrin liluragarri hark, buruan eta bluxan ausarki ezkotua, ageriago uzten bide zuen urteetan pilatutako miseria **ezabagaitza**. Txillardegi

Zenbatez ere den orobat **ezabagaitz** uzten duten zirrara; beraz honako hauek arras kezkatzen naute, nahiz aise suntsitzen ahal direla iruditzen zaidan. Jon Muñoz

-Iñaki, nik **ezabagaitz** matrikulatzen ditiat Espainiako oxtabena guztietako nazi guztien besoak gurutze gamatuarekin! Koldo Izagirre

Zenbatez ere den orobat **ezabagaitz** uzten duten zirrara; beraz honako hauek arras kezkatzen naute, nahiz aise suntsitzen ahal direla iruditzen zaidan. Jon Muñoz

ezabagarri *izond* ezaba daitekeena.

Bazirudien ohe huts hura indar **ezabagarri** misteriozkoren batek sorgindu zuela. Oskar Arana

Lehendik han egon zirenek, beraien etorkizunaz ziur ez eta, beren buruei gela urdin hartan egonak zirela baieztatzeko beharra izan balute bezala, bizitzara lotzen zituzten zerak -izenak, zenbakiak, irudiak-, pareta hartan, bizitzaren errepresentazio xume eta **ezabagarri** hartan, baleude bezala. Felipe Juaristi

Berdintasunzaleak desberdintasun gehienak sozialak direla uste du, eta, hortaz, **ezabagarriak**. Berria - Kultura

ezabagoma *iz* idatzi dena ezabatzeko goma.

Lantegian, kutxa irekien erdian, hantxe agertu zen Max bere traste guztiekin: Canson papera; **ezabagoma**, irasagarra bezain lodia; erregela laua; koloretako arkatzak -gorroto zituen errotuladoreak-. Jon Muñoz

ezabaketa 1 *iz* ezabatzea.

Monopolio publikoen **ezabaketa**. Iñaki Heras

Letra baten **ezabaketa** da gaia. Iñaki Arranz

Alferrikako elementuen **ezabaketa**. Berria - Kultura

Seguruenez etorkizunaren **ezabaketa** horren eraginez [...] zenbait neskak asteak eta hilak igarotzen uzten zituzten haurdunaldiaren amaierara iristen ziren arte. Joseba Urteaga

Xedapen Iragankorraren **ezabaketa** eskatzean, PSNren helburua ez dela «nafarren erabakitzeko aukera mugatzea» argudiatu zuen Purasek. Berria - Euskal Herria

Pepponek tristuraz begiratu zion **ezabaketaz** eta markaz beteriko orri hari. Koldo Biguri

Kultuen erabateko **ezabaketa** sar dadila guk Europa osoan barreiatzen ditugun irizpideen artean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Shakespearek batasunaz ez du ulertzen, metafisikoaren antzera, diferentzien inausketa eta **ezabaketa**, nirwana edo itzalitasun guztizko batean dena zeharo berdin-berdin mortutzeraino. Joxe Azurmendi

Seinaleen **ezabaketak** ere EHEren ohiko ekintzak izaten ziren orduan, gaur egun bezalaxe. Berria - Euskal Herria

Gero eta **ezabaketa** nabarmenagoak ari garela aurkitzen ikuskizunen, gertakarien eta abarren artikuluetan edo kroniketan, eta ez dugula islatuta ikusten geuk geure belarriz eta begiz entzun eta ikusi duguna. Berria - Kultura

Haren margolanetan gertatzen dena ez da xuxen-xuxen **ezabaketa** neurotikoa, baizik elementu batzuen nabarmentze irudimentsu bat, areagotze bat. Xabier Olarra

Zuzenketa lana **ezabaketa** lana izan da gehienetan. Berria - Kultura

Ezabaketa eguna kari, joan den urriaren 25ean, seinale elebidunetako frantses partea ezabatu genuen, euskal herrien izen frantsesa kendu nahian. Herria

· Irudien munduak erakartzen duen bitartean, forma eta materialen esparruan ere gustura dago, beraz, Nereari gertatzen zaion moduan, ondo erakusten du gaur egungo artearen egoera nahasia edo baliabideen arteko muga **ezabaketa**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta ezabaketa (3); **ezabaketa eguna** (10); **ezabaketa eguna egingo** (3); **iragankorraren ezabaketa** (3); **xedapen iragankorraren ezabaketa** (3)

ezabaketari *izond* ezabaketa egiten duena.

Ongi arakatuta, gorazarrearen azpian juzgu **ezabaketari** bat ezkutatzen da. Joxe Azurmendi

ezabakuntza *iz* ezabatzea. ik **ezabaketa**.

Hauteskunde zerrenden **ezabakuntza** justifikatzeko beharrezkoa da inkesta serios bat egitea; arrazoin material eta objektiboetan oinarriturik frogatu behar da hauteslea ez dela gehiago herriari lotua. Herria

Ezabakuntza zuzena egiten da arrazoinak untsa argituz, erran nahi baitu hautesleen kasu guziak aztertuz, postaz herriko etxeak zuzentzen dituen propaganda dokumentazioa edo gutunak, edo bozkatzeko karta herriko etxera berriz itzultzen direlarik. Herria

ezabapen *iz* ezabatzea. ik **ezabaketa**.

Positibotasunen agerpenak eta **ezabapenak**, eurek eragiten duten ordezkapenen jokoak, ez dute prozesu homogeneo bat osatzen, alde guztietatik modu berean garatuko litzatekeena. Xabier Arregi

Artistek, behin, artea hila zela jakinarazi zuten; bada garaia arkitektoek arkitekturaren desagerpena, deuseztatzea, **ezabapena**, erakuts dezaten, hiria eta natura nahasten dituen begiradaren alde. Berria - Kultura

Izan ere, emanak izan zaizkigun batasun guztien **ezabapen** sistematikoak bidea ematen digu, lehenik, enuntziatua berrezartzeko bere gertatzearen singulartasunean, eta erakusteko jarraitasun-eza akzidente handi horietako bat dela, faila bat eragiten duena historiaren geologian eta baita enuntziatuaren akto sinplean ere. Xabier Arregi

Sarrerako lehoien antzera, apaingarri hutsa zirenez, **ezabapena** onetsi du. Berria - Ekonomia

ezabarazi„ ezabaraz(i), ezabarazten *(orobat **ezabatuarazi**)* du *ad* ezabatazera behartu.

Baliteke behartua izatea lanak bereiztera, eraginak eta tradizioak kontuan ez hartzera, jatorriaren arazoa behin betiko alde batera uztera, egileen ezinbesteko presentzia **ezabaraztera**, ideien historiaren mamia desagerraraziz horrela. Xabier Arregi

Epistemea ez da irudi geldia, egun batean agertutakoa eta bat batean eta modu zakarrean **ezabaraziko** dena: etendurak, desdoitzeak, kointzidentziak ezartzen eta desegiten diren multzo mugikor zehaztugabea da. Xabier Arregi

Zerbait nahi al duzu, lehor, erasokor, eta tonuak emakumearen ozarkeria **ezabatuarazi** zuen, Ez jauna, ez dut ezer nahi, begira nengoen, besterik ez. Jon Alonso

ezabatu, **ezaba(tu), ezabatzen 1** du *ad* idatzirik edo markaturik dagoena, edo zerbaiten arrastoa edo seinalea, desagerrarazi. ik **borratu**.

Orria berriz hartu, "x - y=5" **ezabatu** , eta "y - x=5" idatzi zuen. Jon Muñoz

Anjel Urtxipiaren gorpua agentziako garbitzaileak ("garbitzaileak" **ezabatu** eta horren ordez "garbiketa lanen arduradunak" idatzi nuen) aurkitu zuen arratsaldeko zazpiak aldera, bere egitekoa betetzera abiatu zenean. Aingeru Epaltza

Argitan eta epelean, argizariko letrak desitxuratzen joango dira, izkribu guztia **ezabatu** arteino. Anjel Lertxundi

Xiringa bat aspa gorri batez **ezabaturik** . Anjel Lertxundi

Gertatu ohi zait, **ezabaturikoa** dena delarik ere -lerro huts bat, hitz soil eta arrunta, gutun baten burua bera, "adiskide, bi hitz besterik ez" eta antzekoak-, ordeztu ezina iruditzen zaidala, inspirazio argitsuenaren emaitza bailitzan. Ramon Saizarbitoria

Banan-banan **ezabatzen** dituzte pintadak, pintura grisa gainera botata. Urtzi Urrutikoetxea

Armarria hor dago, baina urteek **ezabatu** egin dute erredola. Koldo Izagirre

Ekaitz-giroa zegoen, eta abiatu egin behar, derrigorrez, bidean barrenako gure lorratza **ezabatu** baino lehen. Joxe Austin Arrieta

Hil nadila, ustel nazala lur ustel honek, lotsaren harrak irents eta **ezaba** ditzala nire hautsak. Anjel Lertxundi

Haren lañotasunak, haren eztitasunak nigan sortua duten lilura hain da handia non deusek ez baitu sekula **ezabatuko** . Jon Muñoz

Oraindik gutxiago ulertzen da izpiritua batasun jainkozkoan **ezabatzea** , hainbesteraino ezkutatuz, non adimendu bat ere ez bailitzateke gai ezagutzeko ezer izan ote zen lehenagotik. Joan Mari Lekuona

Kritiko batek **ezabatzen** ahal zaitu ez aipatuz, ez plazaratuz eta baliogabetuz zure lana. Ana Urkiza

Tatxadura bat ageri da eskuizkribuan; baliteke portuaren **izena** ezabatu izana. Juan Garzia

"Ebazteko" **ezabatu** , eta "deuseztatzeko" jarri zuen horren ordez Grosrouvrek. Jon Muñoz

Desinentzia **ezabatzean** , flexio enborra edo erradikala lortzen da. Isabel Arrigain

Ryokok egindako tatuajea **ezabatzeko** ahaleginak egin nituen. Javi Cillero

Euriak ia **ezabaturiko** horma-irudiak ikus zitezkeen nonahi. Jose Morales

Gremioak **ezabatu** ziren, nekazariak askatu, barne-trukeek zituzten muga guztiak ezereztu, banku eta finantza-sistema modernoak eraiki ziren. Koro Navarro

Frantzian, gremioen abantailak ez ziren 1776 arte **ezabatu** . Koro Navarro

Itun horrek eginkizun erabakigarria izan zuen nazio-ekonomien barne-oztopoak **ezabatzeko** . Koro Navarro

Afrikako herrialdeen kanpo zorra **ezabatzearen** auzia konpontzea ez dagokiola soilik Londresi. Berria - Harian

Xedapen Iragankorra **ezabatzeko** proposamenak nola eragiten dio zuen arteko akordioari? Berria - Euskal Herria

Gauak **ezabatu** egiten ditu akatsak, barkagarriago egiten ditu hanka-sartzeak, ahanzkorrago bihurtzen bekatuak.Telekomunikazio enpresak 2003-2005 artean 22.000 lanpostu **ezabatuko** zituela iragarria zuen. Joxean Agirre

Beren gaiztakeriaren aztarna guztiak **ezabatzeko** . Jon Muñoz

Globalizazioa kapitalismoaren zabalkunde espazialaren adierazpen da, globoko muga guztiak gainditurik; baina, aldi berean, eta ororen gainetik, muga fisikoak eta arautuak saihesten, apurtzen, eta, azkenik, **ezabatzen** ditu, muga horiek kapitala mundu osoan metatzea eragozten baitute. Koro Navarro

Aldi berean, kolonia-politikek industriaren munduko mapatik **ezabatu** zituzten kolonizazioaren aurretik indartsuenak ziren bi herrialdeak, Txina eta India. Koro Navarro

Zeren argi sorberriak **ezabatzen** baititu subjektuaren eta objektuaren arteko distantziak. Joan Mari Irigoien

Gogoaren izu eta ilunpeok **ezabatu** behar dituzte, beraz, ez eguzkiaren izpiek ez egunaren gezi argitsuek, naturaren behaketak eta zientziak baizik. Xabier Amuriza

Baina belarrietara iristen ez den ahotson zatia, aurrera alferrik jorik, auretan **ezabaturik** hiltzen da. Xabier Amuriza

Gudaroste handia bidali behar zuen, Israelgo indarrak eta Jerusalemen gelditzen zirenak apurtu eta deuseztera, herrialde hartan beraien oroitzapena ere **ezabatzeraino** . Elizen arteko biblia

Ezabatuta bezala dauka gertatutakoaren zehaztapena edo, behintzat, lanbro artean galdurik bezala oroitzen du eszena. Hasier Etxeberria

Jakin, bazekien ez zuela atzera egiterik, orainak iragana **ezabatua** zuela eta patuak zer ekarriko egon beharra zeukala. Patxi Zubizarreta

Halere, ezkutatuta zegoelako sentsazioa ez zait **ezabatu** . Bernardo Atxaga

Sufrimendu luzeek **ezabatuak** zituzten ia osorik nire adimenaren ohiko ahalmenak. Koro Navarro

Uhin hormatu batek harrapatu du ene gorputz osoa, eta aurrerago joateko gogoa eta gaitasuna bera **ezabatu** ditu bat-batean. Txillardegi

Baliteke, gainera, fotograma bat hurrengoak mozorrotze hori mugimendua atzemateko bidea ematen duen baldintzetako bat izatea, erretinako irudi-iraunkortasuna **ezabatzen** baitu. Josu Zabaleta

Halere, ezkutatuta zegoelako sentsazioa ez zait **ezabatu** . Bernardo Atxaga

Joan deneko bost urte honetan bezala helduko da, itsasoak beti **ezabatu** eta berritu egiten dituen bide ezkutuetan barrena, krabelinen bat, edo petalo bakanen bat. Koldo Izagirre

Ezabatu egingo dut mundutik nik sortu dudan gizakia; gizakia eta harekin batera abereak, narrastiak eta zeruko hegaztiak, damu bainaiz hauek egin izanaz. Jose Antonio Mujika

2 (adizlagun edo kideko baten eskuinean)

Esaldi bat idatzi eta berehala **ezabatzen** zuen. Koro Navarro

Funtsean ez dakite bestea/bestelakoa toleratzen; diferentzia bera zaie, funtsean, jasangaitza; eta, azkenean, haren identitatea da erro-errotik **ezabatu** nahi luketena. Joxe Azurmendi

Propio **ezabatu** den beste testu baten gainean idatzitako testuari "palinpsesto" esaten zaio. Joxerra Garzia

Filosofiak, ordea, bide luzea egin du geroztik, eta edozer gauzak, liburu batek, hitz batek agian, ulertzeko aski argitua den norbaiti egia hori azaltzen dionean, bat-batetik argituko du halakoa, eta izarrak eguzkia piztearekin batera nola, halaxe **ezabatuko** dira haren aurrean sineskeria guztiak. Josu Zabaleta

Tiburoiaren bizkarreko hegatsak ur azala ebaki duela iruditu zait, eta urpean desagertu da orain, eta burbuila batzuk utzi ditu urazal barean, eta burbuilak ere laster **ezabatuko** dira ilargiaren jabegoa ematen duen ur ispiluan. Joseba Sarrionandia

Estatu unibertsalaren xedea baretasuna da, baina horrek sorturiko lasaitasun-sentipena laster **ezabatzen** du frustrazio-sentipenak. Iñaki Mendiguren

Batzuetan oroitzen zen larrua jo ondoko haren irriaz, haren begi dirdiratsuez, baina irudi hura berehala **ezabatzen** zuen gogotik. Elena Touyarou

Kolpetik **ezabatu** zitzaidan krak hotsaren oroitzapena, erreflexu batek eraginda bezala burua jaso eta hain ziztada zorrotzak ematen zizkidan hankari begiratu nionean. Juan Kruz Igerabide

Gero, eskari asko egin zioten, egindako bekatu hura zeharo **ezaba** zezan. Elizen arteko biblia

Depresio Handiak, bere ondorio guztiekin -Bigarren Mundu Gerra barne- orduantxe zertzeko zorian zegoenak, erabat **ezabatua** zuen, 1950a baino askoz lehenago, 1929an nagusi zen ilusioa. Iñaki Mendiguren

Bekatua onginahi eta leialtasunaz **ezabatzen** da, gaizkiari Jaunarenganako begiruneaz egiten zaio ihes. Elizen arteko biblia

Etxekoandreari irribarrea behin betiko **ezabatu** zitzaion aurpegitik. Elena Touyarou

3 (era burutua izenondo gisa)

Goialdeko letrak ia borratuta zeuden, C bat ezik, eta letra **ezabatuen** espazioan Calaportu izena osa zitekeela kalkulatu nuen. Hamabi-hamalau lerro **ezabatuen** azpian txostengileak Ernest Hemingwayren sarea nortzuek osatzen duten argitu nahi du. Joseba Sarrionandia

Horrela azkeneraino (esaldi **ezabatua**) nire erratsak lau haizetara jaurtikiko ditizten (--...). Javi Cillero

Zoroa, nire hitz **ezabatuen** gainean idatziko duena! Anjel Lertxundi

4 (da aditz gisa)

Hodeiak haizeekin mehazten edo eguzkiaren beroaren kolpeagatik **ezabatzen** direnean, euria tantaka bidaltzen dute, argizari koskoa su biziaren gainean likidotzen eta

urtzen den bezala. Xabier Amuriza

Lipar baten buruan, agertu bezain agudo **ezabatu** zitzaion aurpegi hitsa hain bat-batean piztu zion alaitasun hori, sekula izan ez balitz bezala, eta aurpegiak lehengo aire kezkatia hartu zuen berriro. Jose Morales

Kolpetik **ezabatu** zitzaidan krak hotsaren oroitzapena, erreflexu batek eraginda bezala burua jaso eta hain ziztada zorrotzak ematen zizkidan hankari begiratu nionean. Juan Kruz Igerabide

Hargatik, amak igorri azken gutunaren arabera, andere lerden harekin ezkontzeko xedeak oro **ezabatu** zitzaizkion: Maritxu jada Salarteko Pauli hitz-emana zen Jainkoaren aitzinean. Itxaro Borda

-Zergatik erraiten duk hori? -galdetu zion honek, betarteko irria artean **ezabatu** ez zitzaiola. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

araua ezabatzea (3); **arrastoak ezabatu** (5); **artetik ezabatuko** (3); **aurpegia ezabatu** (3); **aztarna guztiak ezabatu** (4); **aztarnak ezabatu** (4); **bat ezabatu** (6); **bat ezabatzea** (3); **bat ezabatzeko** (3); **bat ezabatzen** (4); **batean ezabatu** (3); **batek ezabatzen** (3); **batzuk ezabatu** (4); **bera ere ezabatu** (3); **berehala ezabatu** (8); **berehala ezabatzen** (3); **betiko ezabatu** (4); **burutik ezabatu** (6); **dena ezabatu** (3); **dena ezabatzen** (3); **dira ezabatu** (4); **erabat ezabatu** (12); **erabat ezabatua** (4); **erabat ezabatzeko** (3); **erabat ezabatzen** (6); **ere ezabatu** (12); **ere ezabatu egin** (3); **ere ezabatu gabe** (3); **ere ezabaturik** (3); **ere ezabatzeko** (4); **ere ezabatzen** (4); **esaldi ezabatua** (3); **eskubidea ezabatu** (4); **eta ezabatu** (14); **eta ezabatu egin** (3); **eta ezabatzea** (3); **eta ezabatzen** (7); **ez ezabatu** (4); **ezabatu ahal** (5); **ezabatu arte** (4); **ezabatu aurretik** (4); **ezabatu behar** (12); **ezabatu beharko** (5); **ezabatu da** (7); **ezabatu dira** (3); **ezabatu ditu** (9); **ezabatu du** (6); **ezabatu dute** (4); **ezabatu egin** (49); **ezabatu egin behar** (3); **ezabatu egin nahi** (6); **ezabatu egin zen** (4); **ezabatu egin zituen** (5); **ezabatu egin zuen** (6); **ezabatu egingo** (14); **ezabatu egiten** (25); **ezabatu egiten da** (3); **ezabatu egiten du** (4); **ezabatu eta** (49); **ezabatu ez** (5); **ezabatu gabe** (11); **ezabatu izana** (4); **ezabatu nahi** (26); **ezabatu nahi ditu** (4); **ezabatu nahi du** (3); **ezabatu nahian** (6); **ezabatu nahiz** (3); **ezabatu ondoren** (8); **ezabatu zaio** (3); **ezabatu zen** (6); **ezabatu zion** (4); **ezabatu zituen** (23); **ezabatu zituzten** (10); **ezabatu zitzaidan** (3); **ezabatu zitzaion** (8); **ezabatu zuen** (26); **ezabatua da** (4); **ezabatua izan** (7); **ezabatuak izan** (3); **ezabatuko dira** (5); **ezabatuko ditu** (10); **ezabatuko du** (3); **ezabatuko duela** (6); **ezabatuko dute** (3); **ezabatuko duzue** (6); **ezabatuko duzue gaiztakeria** (5); **ezabatuko ez** (3); **ezabaturik da** (3); **ezabaturik dago** (4); **ezabaturik dira** (4); **ezabatuta geratu** (3); **ezabatuz doaz** (3); **ezabatuz eta** (5); **ezabatuz gero** (3); **ezabatzea da** (5); **ezabatzea edo** (4); **ezabatzea eta** (7); **ezabatzea ezinezkoa** (3); **ezabatzea izango** (3); **ezabatzea proposatu** (3); **ezabatzearen alde** (6); **ezabatzeaz gain** (3); **ezabatzeko ahalegina** (3); **ezabatzeko asmoa** (3); **ezabatzeko aukera** (4); **ezabatzeko eskatu** (7); **ezabatzeko eskatzen** (3); **ezabatzeko eta** (3); **ezabatzeko exijitzen** (3); **ezabatzeko ez** (3); **ezabatzeko joera** (4); **ezabatzeko neurri** (3); **ezabatzeko proposamena** (3); **ezabatzen ari** (4); **ezabatzen da** (10); **ezabatzen dela** (3); **ezabatzen den** (5); **ezabatzen dira** (3); **ezabatzen ditu** (14); **ezabatzen dituzte** (6); **ezabatzen du** (12); **ezabatzen duen** (3); **ezabatzen eta** (7); **ezabatzen ez** (4); **ezabatzen ikusten** (4); **ezabatzen saiatu** (3); **ezabatzen saiatzen** (5); **ezabatzen ziren** (3); **ezabatzen zituen** (6); **ezabatzen zuen** (7); **ezin dira ezabatu** (3); **ezin ezabatuzko** (3); **gogotik ezabatu** (3); **guztia ezabatu** (7); **guztiak ezabatu** (24); **guztiak ezabatu zituen** (3); **guztiak ezabatuko** (3); **guztiak ezabatzea** (8); **guztiak ezabatzeko** (3); **guztiak ezabatzen** (6); **guztiz ezabatu** (7); **hori ezabatu** (5); **hori ezabatuko** (4); **hori ezabatzeko** (7); **horrela ezabatuko** (6); **horrela ezabatuko duzue** (6); **hura ezabatu** (4); **hura ezabatzeko** (4); **inkomunikazioa ezabatzea** (3); **iragankorra ezabatzeko** (6); **irribarrea ezabatu** (5); **izena ezabatu** (4); **izena ezabaturik** (3); **kanpo zorra ezabatzeko** (4); **laguntzak ezabatzea** (3); **lanpostu ezabatu** (4); **lanpostu ezabatu nahi** (3); **lanpostu ezabatuko** (5); **lanpostu ezabatuko ditu** (4); **lanpostuak ezabatu** (3); **legea ezabatzeko** (4); **lerro ezabaturik** (3); **mugak ezabatu** (3); **oro ezabatu** (7); **oro ezabatzen** (6); **oztopoak ezabatzeko** (3); **sekula ezabatuko** (4); **sekula ezabatuko ez** (3); **tortura ezabatzeko** (3); **xedapen iragankorra ezabatzeko** (6); **xedapena ezabatzearen** (3); **xedapena ezabatzearen alde** (3); **zorra ezabatzeko** (4)

---

ezabatuarazi ik **ezabarazi**.

---

ezabatuxe *izond/adlag* ezabatu samarra.

Mahats mordo bakarra belarri batean, eta masailen gorria **ezabatuxea** aurpegi odoleztatuaren azpian. Jokin Muñoz

Egiaren eta alegiaren arteko mugak **ezabatuxeak** dituzten saio horiek ez zitzaizkidan arrotz. Aingeru Epaltza

-Eta ikurrina **ezabatuxe** zeukak! Jokin Muñoz

---

ezabatzaile *izond/iz* ezabatzen duena; ezabatzen duen pertsona.

Zentsuraren tinta **ezabatzailearen** azpian. Edorta Jimenez

Erakutsi gerta litekeela ADN injektatua onkogene-**ezabatzaile** batetik hurbil integratzea eta horrenbestez minbizi bat eragitea. Juan Garzia

Gogoaren izu eta ilunpe honen **ezabatzaile** behar dute, beraz, ez eguzkiaren errainuek, ez egunaren gezi argiek, naturaren behaketak eta zientziak baizik. Xabier Amuriza

Herriko Etxeak ebazpen bat onartu du **ezabatzaileei** zuzenduta. Berria - Euskal Herria

---

ezabatze *iz* idatzirik edo markaturik dagoena, edo zerbaiten arrastoa edo seinalea desagerraraztea.

Horrek denboraren **ezabatze** bat dakar, ordea: bizitzaren zentzua azken eguna iritsi arte erabakitzerik ez badago, itxoite hori kenduta zentzu berri bat pizten da, denboraren iragan arruntarekin zerikusirik ez duena. Pako Aristi

Finantza-beregaintasunaren **ezabatze** horrek, zorren arintzea negoziatzera behartu zituen Txina eta Inperio Otomanoa. Koro Navarro

Handia zen denborak eragindako koloreen **ezabatzea**. Koro Navarro

Irudi finkoak, margolana ala argazkia izan, ez du uzten **ezabatze** hori egiten, eta, hala, deskoadratzeak balio estetikoa izaten du beti horrelakoetan. Josu Zabaleta

Kontsumo-joeren eta arau teknikoen berdintzeari, gainera, kapitalen mugimenduari ezarritako eragozpen fisikoen eta arauzkoen **ezabatze** lasterra erantsi behar zaio. Koro Navarro

Bi hitzetan esanda, **ezabatze** prozesu baten pauso laburrak. Andres Urrutia

---

ezabatzearren *adlag* ezabatzeko.

Uko egin beraren bizitzari, minutu eta ordu bakoitzari, Maitearen malko bakar bat **ezabatzearren**. Anton Garikano

Ez hain aspaldi Malraux ministroa entzun zuen irratian, metropoliko prentsaren akusazioak **ezabatzearren** Aljerian ez zela gehiago torturarik obratzen bere ahuntz ahotsaz finkatzen. Itxaro Borda

---

ezabatzeke *adlag* ezabatu gabe.

-Pirata korsikar batek eman zidaan, krimenaren froga **ezabatzearren**. Koldo Izagirre

Pobre zein aberats, denek loterian esku hartze berdina izatea lortzeko irrika hain bidezkoak haserre biziko asaldamendu bat piztu zuen, urteen joanean oraindik **ezabatzeke** dirauena. Juan Garzia

Kapitaina eta marinelak, lehorrean, barka eske aritu zitzaizkion da Ruari, baina berak, artean izuaren irudia gogotik **ezabatzeke**, ez zien barkatu nahi izan. Felipe Juaristi

---

ezaditu

1 *ezaditua egin*

Nire konplimenduei **ezaditua egin**, gainerakoei bai-ezka erantzun eta Unai eskaileretatik igortzen zidan, atea ireki ere gabe. "Lisboan" inondik ere ohikoa ez den garbitasun-erakutsi hori aski ez, esku artean erratza ikusi behar izan nion, ene eskariari **ezaditua egiteko** asmo tinkoa zuela konprenitzeko. Aingeru Epaltza

---

ezadostasun 1 *iz* adostasunik eza.

Leonardo da Vinci-k, esate baterako, koadroa ispiluarekin parekatzen zuen, eta "margolanik goraipagarriena erreproduzitutako gauzarekin antzik handiena duena" dela idatzi zuen, modu horretan bere **ezadostasuna** erakutsiz "naturako gauzak hobetu nahi dituzten margolariei". Bernardo Atxaga

Ados geratu dira lehenengo aukeran Zuzendariari burrunba egingo diotela, hau da, masailak puztu eta ezpainekin erlastarren hotsa egin, euren **ezadostasuna** adieraztearren. Itziar Otegi

Uztailaren 27an Alfonso Alonsok aurkeztutako erreforma aginduak **ezadostasuna** piztu du haur eskoletako langileen artean. Berria - Euskal Herria

Onuragarria da gizakiak Gizarte komunera eramaten dituena, hots, gizakiak adostasunean bizitzera erakartzen dituena; eta kaltegarria, aldiz, Estatuan **ezadostasuna** dakarrena. Piarres Xarriton

Akordioa dauden puntuetarako bitartekaritza erabiltzea eta **ezadostasuna** sortzen duten kontuetan arbitrajearen bidez irtenbidea bilatzea. Berria - Ekonomia

GATTen kasuan ez bezala -GATTen, arbitrajeak, baliagarriak izateko, alde guztiek onartu behar zituzten, salatuak barne-, MMEren **ezadostasunak** arautzeko mekanismoak ez du beto-eskubiderik onartzen. Koro Navarro

Horrelakoetan beti gertatu ohi den bezala, etsaigoak, **ezadostasunak**, aspaldian dilindan zeuden aferen inguruko istorioak ziren auzoen akusatzeko eta salatzeko arrazoi nagusiak. Elena Touyarou

Mikeli bere **ezadostasuna** argiki adierazi zion. Ramuntxo Etxeberri

Sarkozyk sozialisten **ezadostasunak** nabarmendu ditu, eta Fabiusen jarrera gaitzetsi. protekzionismoaz dauden **ezadostasunak** konpondu nahian. Berria - Euskal Herria

Atzo goizean prentsa gomitatu zuen beren **ezadostasuna** azaltzeko. Berria - Kultura

Euren **ezadostasuna** aldarrikatzeko oxigeno maskak aurpegian, eta zabor poltsak soinean zituztela, ehunka lagunek euren aldarria entzunarazi zuten. Berria - Euskal Herria

Hurrengo solasketetan **ezadostasunak** gainditukо ditugula espero dugu. Berria - Mundua

Indar iraultzaileen arteko **ezadostasunak**. Edorta Jimenez

Gure gizarteetako markak dira hain zuzen ere gobernatzen zailenak, ez hainbeste arazoaren diagnostikoan sor daitezkeen **ezadostasunengatik** (hots, arriskuaz edo segurtasunaz egon daitezkeen irakurketa ezberdinengatik), terapiak exijituko lukeen demaseko berrantolaketa soziotekniko eta kulturalagatik baizik. Berria - Gaiak

Hizkuntzaren eta ortografiaren arteko **ezadostasuna** dagoenean, zaila izan ohi da auzia erabakitzea hizkuntzalaria ez denarentzat. Isabel Arrigain

Ezadostasunak ezadostasun, Freuden ekarpena aintzakotzat hartu behar dela uste du: «Gizon ausarta izan zen, eta haren eragina gaur arte iritsi da». Berria - Harian

Emmak **ezadostasunezko** imintzio adierazgarria egin zuen. Lutxo Egia

Jokin Arbea ELAko Nafarroako metalgintzako arduradunaren arabera, bi sindikatuokin izan dituzten **ezadostasunak** estrategikoak dira eta ez edukiari buruzkoak. Berria - Ekonomia

Hezkuntza eskumenen inguruko **ezadostasunak** direla eta, bertan behera geratu dira instituzioen arteko harremanak finkatzeko negoziazioak. Berria - Mundua

Herrialdeen arteko **ezadostasunak** ezin dira izan gaindiezinak. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bereziki apailuari dagokionez, beren artean **ezadostasun** handiak badituzte ere, tesi batzuen inguruan batzen dira elkarrengana testu hauek guztiak. Josu Zabaleta

159 emendakin aurkeztu diren arren ez dugu espero **ezadostasun** sakonik egotea. Berria - Ekonomia

Gobernu egitasmo bateko atal gehienetan bat etorri gara eta **ezadostasun** bakan batzuk soilik geratzen dira aztertzeko. Berria - Mundua

Lehen **ezadostasuna** katalanezko narratiba eta poesia lanak saritzen dituen Palma Hiria Sarian izan dute. Berria - Kultura

Alderdi barruko **ezadostasun** politikoek militante asko banatu dituzte Daniel Ortegak 1990, 1996 eta 2001eko hauteskundeetarako bere burua presidentetzarako hautagai jarri zuenetik. Berria - Mundua

Bere **ezadostasun** ideologikoa nabarmena zen, eta hilabeteak zeramatzan Hegoaldeko Zuzendaritza Politikoari menik egiten ez ziola. Rafa Egiguren

Arazo honek agerian ezartzen du Irakeko Gobernu Kontseiluaren baitan **ezadostasun** nabariak badaudela. Berria - Mundua

Mahaian, ostera, agerian geratu dira auditoriumari buruz alderdien artean dauden sakoneko **ezadostasunak**. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan)

Eztabaida gune aberats bat izan zen ezkerreko abertzaleentzat) bainan barne **ezadostasun** batzuek proiektua geldi arazi zuten. Herria

Estrategia **ezadostasunak**. Berria - Mundua

Kritika eta barne **ezadostasunen** artean negoziazioetan segitzen zuen atzo Venezuelako oposizio nagusia biltzen duen Koordinadora Demokratikoak. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko ezadostasunak (11); **bere ezadostasuna** (8); **beren ezadostasuna** (7); **dituzten ezadostasunak** (3); **du bere ezadostasuna** (3); **euren ezadostasuna** (4); **ezadostasun horiek** (3); **ezadostasuna adierazteko** (3); **ezadostasuna agertu** (7); **ezadostasunak eta** (3); **hainbat ezadostasun** (3); **inguruko ezadostasunak** (4); **izan zituen ezadostasunak** (3); **zituen ezadostasunak** (4)

---

ezagatik 1 *adlag* faltagatik.

Eta ez da leku **ezagatik**, sinaduren luzeagatik baino. Edorta Jimenez

Spidlak lehen ministro kargua utzi du, babes **ezagatik**. Berria - Mundua

Esamolde barbaro xamar hori erabiltzeko arrazoia zera da: a priori honek enuntziatuen kontua eman behar duela euren sakabanaketan, euren koherentzia **ezagatik** irekitako faila guztietan. Xabier Arregi

Gramatikaren azterketan esanahia erabiltzearen aldeko iradokizunen desegokitasuna argi ikusten ez bada, uste dudanez, haien zehaztasun **ezagatik** da, bai eta "hizkuntz formari buruzko intuizioa" kontzeptua "esanahiari buruzko intuizioa" kontzeptuarekin nahasteko zoritxarreko joera batengatik ere. Itziar Laka

Bill Clintonek kargutik kanporatua izatea merezi du, bere koherentzia eskasagatik, bere animaleko itxurakeriarengatik, behin eta berriro erakutsi duen bere prestutasun **ezagatik**. Patxi Zubizarreta

Hala da, beren sinesmen-**ezagatik** moztu zituen, eta zuk zeure sinesmenagatik irauten duzu; ez izan, beraz, harro, eta ibili kontuz. Elizen arteko biblia

Frantziskok errieta egin zion bere buruari bere adeitasun **ezagatik**: "Pobre hori konde edo baroi handi baten izenean etorri balitzaik, erantzungo hiokeen bai bere eskariari". Askoren artean

Eta horrela, Jaungoikoa bezala, inoren mende egon nahi **ezagatik**, harrokeriaren erruz, bere onetik atera eta amiltzen da piztien gozamen diren plazeretara. Imanol Unzurrunzaga

Askotan damutzen gara, hark edo honek kararik kara botatakoari, behar den gisan edo garaian erantzun **ezagatik**. Patziku Perurena

Herrialdea utzi nahi dute NBEko giza laguntzaileek, segurtasun **ezagatik**. Berria - Mundua

Abere etxekotu baten **ezagatik**, Mundu Zaharrean abeltzain nomadaren bizimodua erabaki zuen zerbait, Mississippi Arroko Lautada Handiak, abeltzainen paradisu izan zitezkeenak, tribuen ehiz lurralde izaten jarraitu ziren. Iñaki Mendiguren

Hura kontatzen zidan bitartean, P.-R. andrea oso haserre jarri zen, erabat suminduta kontzientzia profesional **ezagatik**. soldatak ordaintzeko dituen baliabide ekonomiko **ezagatik** PAN gainbehera egiteko arriskuan dagoela ohartarazi zuen asteburuan Laukoteak Ekialde Hurbilerako duen ordezkari berezi James Wolfensohnek. Joseba Urteaga

2 (dagokion izena -ik atzizkiaz)

Zio fonetikorik gabe gelditzen diren bilakabideak erregela bihur daitezke, nahiz eta orain gertatzen diren erregela batzuekin, daturik **ezagatik** ez dagoen ziur jakiterik zein bilakabidetatik datozen, ezta bilakabide batetik datozen ere. "Ergelak burugabekeriaz hiltzen dira", zentzurik ezaz, alegia (hitzez hitz, 'bihotzik **ezagatik'**). Lourdes Oñederra

Bere buruaren errukitan dabiltzan alferrontziak, eta gero diziplinarik **ezagatik** eskolatik boteak, ez ditiat maite! Jesus Mari Mendizabal

Lehengoan, gorotzaz ari nintzela, itiña, arkiña, (ziriña) eta antzekoak erabili nituen gogoan, baina, askotan bezala, lekurik **ezagatik** bazter utzi. Eta maite ez badute elkar, ez da obligaziorik **ezagatik**; ez dute inoren maitasunean sinesten, ikusten ez dutelako. Patziku Perurena

Astirik **ezagatik**. Edorta Jimenez

---

ezaguarazi ik **ezagutarazi**.

---

ezagubide ik **ezaupide**.

---

ezaguera **1** *iz* ezagutzea, zerbaitez ezagutzen dena; ezagumena. ik **ezagutza; ezagupen; ezagumen**.

Gure amak autoa gidatzen zuen, galtzak janzten, zigarretak erretzen, nik **ezaguera** dudanetik. Karlos Zabala

Ezaguera izan nuen lehen momentutik sentiarazi zidan amak Ingoren tokia betetzera etorria nintzela. Anjel Lertxundi

Ezaguera dudanetik, berriz, gogoan dut mutikozkorretan nola ibiltzen ginen jostaka, Karretoko soroan bertan izaten genuen lizar handi adartzabal haren itzalean. Patziku Perurena

Sartu da hoteleko nagusia neskatxa zegoen gelan eta **ezaguera** galduta, lurrean etzanda aurkitu du. Gotzon Garate

Berak jartzen eta kentzen erregeak; berak ematen jakinduria jakintsuei, eta **ezaguera** burutsuei. Elizen arteko biblia

Berebiziko espiritua, **ezaguera** eta trebetasuna ditu ametsen esanahia argitzeko, asmakizunak igartzeko eta gauza korapilotsuak erabakitzeko. Elizen arteko biblia

Hara ezin hurbil daiteke animaliarik, hau ez baita bizi zentzumenarentzat baizik, eta ez du **ezaguerarik**, ez sentimendurik, ez kontzientziarik. Joan Mari Lekuona

Jacquesi iruditzen zitzaion legea egiaren ahotsa zela, argiaren agindua, bakoitzari bere mugak ezartzen zizkiona, **ezaguera** zuenak jakin zezan ongia gaizkitik bereizten. Felipe Juaristi

Buru-belarri ari izana naiz jakinduria eta **ezaguera**, zorakeria eta ergelkeria zertan bereizten diren aztertzen; eta ohartu naiz, hori bera ere haizea atzeman nahi izatea bezala dela. Elizen arteko biblia

Ezaguera horrek aukera ematen digu bere alderdirik sakonenetan atzemateko errealitatea: printzipioetan eta jatorrian. Juan Garzia

Adanen mitoan eta Faustorenean, **ezaguerak** ez dezake eraman gaizkira baino; sugea eta deabrua dira, hurrenez hurren, haren ikur. Juan Garzia

Uko egin behar ote diogu zenbait gauza jakiteari, **ezaguera** hori erabiliz egin litekeenaren beldurrez? Juan Garzia

Naturaren barnean askatasun maila gorena erdiesteko, gizakiak bere **ezaguerak** erabili behar ditu, harekiko harmonian ingurumen hobea eraikitzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Laster konturatuko da gauzak ez direla zehazki errepikatzen ari: bere esperientziak eta **ezaguerek** (eta, batik bat, bere oroitzapenek: etorkizuneko oroitzapenek) bariazio txikiak eragiten dituzte inguruko munduan, eta iragana aldatzen hasiko dira, gutxika-gutxika. Berria - Kultura

"**Ezagueraren** gizartean" bizi gara, eta gizarte mota honetan, onartu nahiz ez, konturatu edo ez, gero eta garrantzi handiagoa hartzen du unibertsitateak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Jaunarenganako begirunea da **ezagueraren** oinarria. Elizen arteko biblia

Ez dago geldiarazterik **ezagueraren** bilaketa. Juan Garzia

Badakit hark esaten zuela **ezagueraren** oinarria intuizioan zetzala. Karlos Linazasoro

Gurutzearen misterio handi eta miresgarri honen sakon-sakonean daude gordeak graziaren dohainak, bertuteen merituak eta jakinduriaren eta **ezagueraren** altxorrak. Askoren artean

Jakituriaz, adimenez eta **ezagueraz** betea zen. Xabier Kintana

Bati jakinduriaz hitzegitea ematen dio Jainkoak Espirituaren bidez; beste bati, Espiritu beraren arabera, **ezagueraz** hitzegitea. Elizen arteko biblia

Mesopotamiako hiriburuan igaro zituen hamabi urteetan, babiloniar eskribauen eta aztien jakintza neurrigabea bereganatu, eta jakinduriaz eta **ezagueraz** gainezka itzuli zen Samosera. Jon Muñoz

Bide hori formala edo **ezaguerazkoa** ote zen? Matisseren "estiloa" formula modura bereganatze hutsa? Ala Matisseren ikuspegiari, haren sentiberatasun eta arteari maila sakonago batean ari zitzaion erantzuten? Xabier Olarra

Goardiak ez du **ezaguera** galdu, eta Joxeri argiro iritsi zaizkio haren aieneak. Pello Lizarralde

Genomaren **ezaguerak** berekin ekarriko du gero eta ADN-sekuentzia gehiago atzematea. Juan Garzia

Bretoieraren babeserako *Storum Ar Brezonheg* (SAB) elkartearen arabera, hizkuntzaren **ezaguera** eta erabilera gutxituz doa urtez urte, eta egoera larrian dago. Berria - Mundua

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Emakumea bere **ezaguera** osoan heldu zen erietxera. Berria - Euskal Herria

Ezaguera berriek ez dituzte irudikapen tradizionalak soilik kordokarazi, baizik eta, haiekin batera, hainbat arau, indar naturalen balioztapen goren-gorenean eta indarron izaera sakratuan oinarrituak. Juan Garzia

Berrikuntza hauek gerta daitezen **ezaguera** zientifikoak aurrera egin behar du, ez da legediak berak bakarrik agintzeagatik lortuko dena. Berria - Gaiak

Adiskideak ere hantxe hartzen zituen, bere antzera **ezaguera** erlijioso edo mistikoen zale zirenak. Patxi Zubizarreta

Ezaguera mikroskopikoari esker, **ezaguera** global baterako bidea zabaltzen zuen orain. Jon Muñoz

Edonola ere -eta honetan bai, esan dezaket **ezaguera** osoa dudala-, obsesioa ez da urteekin hobera egiten duen joera psikologikoa. Ramon Saizarbitoria

Buruen argi horrek halako lehiaz bilatzen duen munduaren **ezaguera** argia pare-parean doala gure burmuinaren mugekin. Juan Garzia

Koloreen fisikari eta kolorearen hargailuen mekanismoei buruzko **ezaguera** teoriko osoa jaso dudan arren, horrek ez dit lagundu koloreen zer-nolakoa benetan ulertzen. Xabier Olarra

Iruditzen zitzaidan orain **ezaguera** inplizitua zuela eta, apika, horrez gain, **ezaguera** sinbolikoa (kontzeptuala ez izan arren). Xabier Olarra

Jainkoarenganako begirunea da jakinduria, gaiztakeriatik urrutiratzea benetako **ezaguera**. Elizen arteko biblia

Kanpoko ikusmenak arimari inolaz ere eskura ezin diezaioken hura, barruko **ezagueraz** ezagutzen denean [...] irudi eta sentiberatasunik erabili gabe, orduan badaki hori egia dela. Joan Mari Lekuona

Maita dezagun guztiok bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz, indar eta ahalmen guztiz, **ezaguera** osoz. Askoren artean

Askietsi-edo egiten duzu bildua duzun munduari buruzko **ezaguera** delako hori, kontent zaude, eta, orduan, noizbehinka, zerbait gertatzen da eta erauzi egiten zaitu handigurazko oskol harro horretatik, eta berriro gogorarazten dizu ez dakizula fitsik ere bizitzaz. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Virgilengan **ezaguera**-ahalmen horiek, garatu gabez, hasi-masikoak baizik ez ziren; ez zen asko beharko, beraz, garuneko ikusmen-ezagumenaren aldeak lanpetuegi ibiltzeko. Ordenagailuen indar itzelarekin, Interneteko **ezaguera**-aukera paregabeekin, lanabesen merkatzearekin... Gero eta errazagoa zen laborategi txikientzat lan duina egin ahal izatea. Xabier Olarra

Guztiek zuten berezko adimen bat, baina beste mota batekoa, **ezaguera**-esparru jakin batzuetara mugatua. Xabier Olarra

Modelatzearen mimesi-ahalmena, barne-irudiztatze guztiz hitz eta kontzeptu gabearena, ez ote den izan **ezaguera** modu nagusia milioi bat urte edo gehiagoan, gure aurreko gizakiarentzat, Homo erectusarentzat, Homo sapiensaren baitan pentsamendu abstraktua eta hizkuntza sortu arte. Xabier Olarra

Geure buruari galdetu diezaiokegu, bada, ea zientzia gai denetz **ezaguera**-masa jakin bat gainditzeko. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **ezagueraz** gainetik zeuden hainbat eta hainbat azalpen ematen zienez gero, anaiek aitortu behar izan zuten Jaunaren Espiritua oso-osorik zegoela Jaunaren morroi Frantziskorengan. Askoren artean

Bizi duen demokrazia munduko gauzarik ederrenetarikoa dela ziur baitago, azkenengo hogei urteetan zehar praktiketan aritu eta honen ondorioz pluraltasun, bizikidetasun, errespetu eta sufrimendu-**ezaguera** zabala eta mingotsa metatu duelako. Iban Zaldua

Den-dena zekien, kanpotik, adimenaren ikuspegitik, koloreaz; galdua zuen, ordea, beraren barne-muineko osagai izandako zerbaiten oroitzapena, haren barne-**ezaguera**. Xabier Olarra

Lehenengo eta behin, zientzia-ikerketaren beraren jarduneko gorabeheraren bat gerta daiteke zientzia-**ezagueren** oztopagarri. Juan Garzia

Saguaren eta gizakiaren kasuan, azkenik, non bazen lehendik genetika-**ezaguera** handi samar bat pilatua, modua dago orain zeinahi ere gene bakartzeko Juan Garzia

5 *ezaguera egin*

Bien bitartean, Cadinek eta Marjolinek Léonen **ezaguera egin** zuten, Quenu-Gradelletarren hestebetegile aprendizak jakiren bat auzoko norbaiten etxera zeraman batean. Karlos Zabala

Baina harengana iritsi aurretik, frantziskotar fraide baten **ezaguera egin** behar izan zuen Ruche jaunak: Luca Pacioli. Jon Muñoz

-Lagun iezaguk, hortaz, elkarren **ezaguera egiten**. Josu Zabaleta

René Clair-en Bihar gertatu zen filmean, erreportari gazte batek fantasma baten **ezaguera egiten** du, eta haren begiko izatea erdiesten. Juan Garzia

Ez diat bere **ezaguera egin** orain dela hilabete batzuk. Anton Garikano

Iruditu zitzaidan bazegoela hartarako urrats bat aurreratzea eta ugaztun-zelulen **ezaguera egitea** sagu-zelulak haziz. Juan Garzia

Agirrek eta biok, goiz hartan, hamaikak aldera **egin** genuen **ezaguera**, eta hitzordu bat adostu genuen Simago Galerietan laurak eta laurdenetarako. Rafa Egiguren

Arrakasta izateko nahiz huts egiteko aukera, edozeinek beregana baititzake "ekoizpen baliabideak", lan **egiteko ezaguera** esan nahi dut, baina ezin du edozeinek irabazi. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitateko lehen urtean **egin** zuten elkarren **ezaguera**. Jon Muñoz

Egingo dizut haren **ezaguera**, nahi baduzu, baina oso noizean behin baizik ez da etortzen hona. Josu Zabaleta

· Bernardo Atxagaren *L'homme seul* liburuaren frantses itzulpena medio, elkarren **ezaguerak egiten** hasi ginen. Patxi Zubizarreta

Paul D-k **ezaguera** berri batzuk **egin** zituen; aurki zezakeen lanaz mintzatu zen haiekin. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

barne ezaguera (3); **bere ezaguera** (5); **buruzko ezaguera** (3); **da ezaguera** (4); **duen ezaguera** (3); **dugun ezaguera** (3); **elkarren ezaguera** (3); **eta ezaguera** (18); **eta ezagueraren** (3); **eta ezagueraz** (3); **ezaguera egin** (5); **ezaguera eman** (3); **ezaguera eta** (17); **ezaguera hori** (5); **ezaguera horren** (3); **ezaguera izan** (4); **ezaguera modu** (3); **ezaguera osoan** (3); **ezaguera zabala** (4); **ezaguerarik ez** (4); **ezaguerarik gabe** (3); **gure ezaguera** (3); **hizkuntzaren ezaguera** (3); **jainkoaren ezaguera** (3); **jakinduria eta ezaguera** (3)

---

ezagugai *iz* ezagutzaren gaia.

Izaki horri esker, gizakia askatzen da **ezagugai** diren gauzetatik, uko dagio bere buruari eta Jainkoagana igotzen da. Joan Mari Lekuona

Maitagogoaren eginkizuna, ezagueraren alorrean, bere maitagaiak, bere **ezagugaiak** bilatzea, argitzea, zabaltzea eta sakontzea da. Jenaro Garate

---

ezagugaitz *izond* ezagutzen zaila, ia ezin ezagutuzkoa.

Nabaritasunaren baliabideek zatietan laguntzen dute, baina gehienetan osokian arreta galtzea dakarte, irakurleari osokiaren gainbegiradara behar bezain azkar iristen uzten ez dioten heinean, eta bere kolore nabarrekin sistemaren artikulazioa edo atal-egitura ezkutatzen eta **ezagugaitza** bihurtzen duten heinean, bera izan arren garrantzitsuena sistemaren batasunaz eta irmotasunaz juzgatu ahal izateko. Ibon Uribarri

---

ezagugarri ik **ezaugarri**.

---

ezagule *izond* ezagutzailea.

Ezagule zerbait ezagutzen duena da. Jenaro Garate

Bere buruaz kanpo ez du beste gogo **ezagulerik** ezagutzen. Imanol Unzurrunzaga

Baliteke norbaitek erantzutea ezin dudala nik baietsi ez dela kosmosean beste izaki **ezagulerik**. Jenaro Garate

Generoaren **ezagule** ona naiz eta Dick irakurri izan dut, baina ez nuen lan horren arrastorik ere. Iban Zaldua

Liburuaren **Ezagulearena**. Juan Garzia

Tradizio (neo) klasiko horren erreferentziak hari garrantzitsua dira, baina ez bakarrak, eta horregatik, haren **ezagule** ez direnek ere topatuko dute haren poesia liburuetan zer gozaturik. Berria - Kultura

Aitarentzat oparia erosteko ardura nire esku utzi du anaiak, eta, beti bezala, ardo botila pare bat erostea erabaki dut, anaia baino ardo-**ezagule** kaskarragoa banaiz ere. Iban Zaldua

---

ezagumen 1 *iz* ezaguera, eta eskuarki, ezagutzeko ahalmena.

Hautamena eta **ezagumena** ez dautzala adimenean edo nahimenean. Jenaro Garate

Maitamena baiestea, batera **ezagumena** eta hautamena baiestea da. Jenaro Garate

Ezin dut sofritu txerriez gaizki hitz egiten duen jendea: **ezagumena** duten abereak dira, eta pena ematen dit akabatu behar ditudanean. Juan Garzia

Ezagumena itzaltzen hasi zitzaion, barreiatutako sutearen txingarrak itzaltzen diren bezala. Jose Morales

Zer da, zelakoa da, noraino heltzen da gure **ezagumenaren** ahalmena? Jenaro Garate

Lockeren teoria epistemologikoak **ezagumenaren** azalpena lortzen du hautematearen teoria baten bidez. Askoren artean

Kolorearen eta ñabardura-kontrastearen galeraren kontua ematen zuen, eta ez hainbeste **ezagumeneko** akatsa, agnosia. Xabier Olarra

Ez dago maitatzerik **ezagumenez** eta hautamenez izan ezik. Jenaro Garate

Hemen, **ezagumenezko** gertaerak -guk kontzeptuak izendatzen ditugunak-, loturik aurkitzen dira ikur linguistikoen irudikapenekin, edo ikur linguistiko horien adierazpenerako balio duten irudi akustikoekin. Isabel Arrigain

Badirudi joera hori arras itzulikatu dela zenbait urtetatik hona, zinemari buruzko gogoetaren alorrean ikuslearen **ezagumenezko** teoriak azaldu direnetik. Josu Zabaleta

Adimena lehenago negatiboki besterik ez zen definitu: sentsuzkoa ez den **ezagumen** gisa. Ibon Uribarri

2 (izenondoekin)

Ezagumen goren honen benetako determinazioa metodo guztiak eta bere oinarri-esakuneak soilik erabiltzea dela. Ibon Uribarri

Kanon batez oro har **ezagumen** jakin baten erabilera zuzenaren apriorizko oinarri-esakuneen multzoa ulertzen dut. Ibon Uribarri

Apriorizko ezagutza huts orok batasun berezi bat osatzen du, beraz, bere egoitza den **ezagumen** bereziari esker. Ibon Uribarri

Nik, Jakinduriak, zuhurtasuna dut lagun, **ezagumen** eta bereizmen egokiak ditut neurekin. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusmen normaleko pertsonek, ikusmen hutsezko sentsazioetatik abiatuz, nekerik gabe taxutzen dituzte formak, ertzak, gauzak eta eszenak; jaiotzatik bertatik aritu dira ikusmenaz halako mundu bat taxutzen, eta **ezagumen** -aparatu eskerga garatu dute hori nekerik gabe egiteko. Xabier Olarra

Garuneko beste alde batzuetako lesioek beste nahasmendu batzuk sor ditzakete sentimen nahiz mugimenean, mintzamenean nahiz pertzepzio-, **ezagumen** - edo oroimen-funtzio espezifikoetan. Xabier Olarra

Aziendarekin nagoenean, ez dago **ezagumen** -konturik. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan harekin aparteko ahalegin teorikoa egin zuen: giza **ezagumenaren** oinarriak eta mugak finkatu zituen. Berria - Kultura

Erich Frommek, aldiz, lehenbizi zientziaren emaitzak behar ditu giza **ezagumena** zelakoa edo zenbatekoa den erabakitzeko. Jenaro Garate

Virgilengan ezaguera-ahalmen horiek, garatu gabez, hasi-masikoak baizik ez ziren; ez zen asko beharko, beraz, garuneko ikusmen- **ezagumenaren** aldeak lanpetuegi ibiltzeko. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

askatasuna eta ezagumena (4); **eta ezagumen** (3); **eta ezagumena** (9); **ezagumen gisa** (3); **ezagumena eta** (10); **ezagumena eta hautamena** (6); **ezagumenaren eta** (4); **gure ezagumenaren** (7); **hautamena eta ezagumena** (3)

---

ezagumendu

1 *iz* ezagutzea, ezaguera; ezagutzen diren gauzen multzoa. ik**ezagupen**.

Haren abiapuntua aniztasun historiko edo kulturalaren **ezagumenduan** datza. Askoren artean

Josu Gervasio Erkorekaren *Las Cofradías de mareantes* lanak ederto erakusten du zelan zeuden planteatuta kofradiak: kargua ezin da errepikatu, zenbait kargutarako kontuan hartzen da adina, zeren adinak esan nahi baitu **ezagumendua** : ezin denean liburuen bidez ezagutu, eskarmentuak dakar ezagubidea. Markos Zapiain

Zenbait kargutarako kontuan hartzen da adina, zeren adinak esan nahi baitu **ezagumendua** : ezin denean liburuen bidez ezagutu, eskarmentuak dakar ezagubidea, eta arteza da, hortaz, adina zelanbait saritzea. Markos Zapiain

Josu Gervasio Erkorekaren Las Cofradías de mareantes lanak ederto erakusten du zelan zeuden planteatuta kofradiak: kargua ezin da errepikatu, zenbait kargutarako kontuan hartzen da adina, zeren adinak esan nahi baitu **ezagumendua** : ezin denean liburuen bidez ezagutu, eskarmentuak dakar ezagubidea. Markos Zapiain

D. Bell-ek 25 urte lehenago gaztigatu zigun gisa, ezagutza, **ezagumendua** , bihurtu baita baliabide ekonomikorik garrantzizkoena munduan. Pello Salaburu

Gure **ezagumenduak** aurrera egiteko orduan gure hezkuntza sistemak eta haren ikerketa proiektuek paper berezia dute. Pello Salaburu

Tribuna bat zabalik mundura prentsa eta konferentzia bidez; **ezagumendu** nazional eta internazionala. Joxe Azurmendi

Euskal Herriko sozioekonomiako eragileen artean harremanak sustatu; elkar ezagutza bultzatu; teknologia eta **ezagumenduen** transferentzia ahalbidetu. Berria - Harian

2 errekonozimentua.

Ez katedra bat soil: onarpen aitorra eta ohorea (Salamancako errektore da); entzutea eta arrakasta, Espainian ez ezik, Latinoamerika guztian; tribuna bat zabalik mundura prentsa eta konferentzia bidez; **ezagumendu** nazional eta internazionala. Joxe Azurmendi

---

ezagumendun

izondo ezagumena duena.

Hori da gizakiaren handitasuna, izen asko jaso izan duena, duintasuna adibidez: maitagogo (maitamendun, **ezagumendun** eta hautamendun) izan eta ondorioz beragan edukitzea onaren, egiaren, ederraren neurria. Jenaro Garate

ezag *iz* harremana edo tratua duten bi pertsonen artean, bata bestearekiko.

Lagun baino, **ezagun** izan gara orain arte. Harkaitz Cano

Gorde ditudan egunkarietako orrialde moztuetan badira Romainen adiskide edo **ezagun** izandako batzuen lekukotasunak ere. Joxean Agirre

2 *izond* jendeak ezagutzen duena.

Diskurtso **ezaguna** , zaharra. Iñaki Heras

1994 urtean, The Economist finantza eta ekonomia gaietaz diharduen aldizkari **ezagunak** hamar urte lehenagotik egin zuen galdeketa baten emaitzak argitaratu zituen. Iñaki Heras

Enpresek istilu **ezagunak** izan dituzte beren jarduera ekonomikoaren ondorioa dela medio. Iñaki Heras

Anai-arrebak eta lehengo **ezagunak** etorri zitzaizkion ikustera. Elizen arteko biblia

Haren gorputza, geografia **ezaguna** balitz bezala, ibili zuen behin eta berriro. Felipe Juaristi

Saltz familiak, izan ere, etxe dotore barrokoa zuen Malá Stranan, gaztelupean, aurrealde zuri, garbi eta distiratsuagatik **ezaguna** ez ezik, miretsia ere bai. Felipe Juaristi

Pianistak Chopin-en Nocturno **ezaguna** egin zigun opari. Berria - Kultura

3 ***ezagun/ezaguna egin***

Ezaguna egin da bere esaldi hau: "Jainkoak egia osoa eta egiaren bilaketa emango balizkit aukeran, bilaketa aukeratuko nuke". **Ezaguna egin** zen pasadizo batek argi erakusten digu zeinen sarri gertatzen zen zeruko gozotasunean murgildua. Askoren artean

Ezaguna egin nintzen apika-apika eta Poloniako Itzulia egin nuen, Navigare taldearekin. Berria - Kirola

-Oppenheimer **ezaguna egiten** zait, baina ez dut kokatzen. Fernando Morillo

- **Ezaguna egingo** zaik lan-klase hori. Inazio Mujika Iraola

Ahotsa **ezaguna egiten** zitzaidan. Anjel Lertxundi

Ezaguna egiten zait zure aurpegia. Koldo Izagirre

Bazen sasoi hartan abesti bat, *Angelitos negros*, Machin izeneko artista batek zabaldutakoa eta Espainia osoan guzti-guztiei **ezaguna egiten** zitzaiena. Bernardo Atxaga

PVC delakoa **ezaguna egiten** zaio jende gehienari, izena besterik ez bada ere. Berria - Gaiak

Niri **ezaguna egiten** zitzaidan izen hura, irakurri berria nuen-eta Ernst Jüngerrek bere liburuan kontatzen duena Orainvillen gertatutako granada-leherketa izugarri bati buruz.

Parrokiaren izena **ezaguna egiten** bazaio ere, ez daki zehatz-mehatz non dagoen. Anjel Lertxundi

Ezaguna egin zitzaion Justori, nondik ezagutzen zuen ziur ez bazegoen ere. Joxemari Urteaga

-Aditu hau, ea **ezaguna egiten** zaizuenS. mithen obra oso **ezaguna egin** zen, bereziki esku ikusezinaren pasartea. Iñaki Iñurrieta

Nazioartean **ezaguna egin** zen euskalduntasunaren aldarrikari moduan. Askoren artean

Bistaz **ezaguna egin** zitzaion, baina nor zen esateko adinako segurtasunik gabe. Joxemari Urteaga

Guztiz **ezaguna egin** zen Dupinen izena poliziako kideen artean. Koro Navarro

Haien ukitze berezia **ezaguna egin** zitzaion. Aritz Gorrotxategi

Ibaia gertu dago baina auzoa ez zait **ezaguna egiten** . Harkaitz Cano

Egunkari haietako mundua ez zitzaidan batere **ezaguna egiten** ; western bat bezain arrotza zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

4 ***ezagun/ezaguna izan*** da *ad* jakina edo nabaria izan, ezagutzen dena izan.

Batean **ezagun dena** , bestean arrotz. Xabier Etxabe

Nahiz eta egun hartan laster akitu zen, agertu zuen poxi hortarik **ezagun da** , dio beti medikuak, bertsulari hoberenetarik dela. Michel Oronoz

Ezagun da Pilar Kareaga, Bilboko alkate izandakoari gertatu zitzaiona. Gotzon Garate

Eztabada horiek **ezagun dira** Errusian berean, bereziki gizonaren eskubidetaz arta dutenen ganik. Herria

Haatik, haren hazpegietan **ezagun zen** oraino xarmangarri izan zeneko garaia. Aingeru Epaltza

Lanpara izenez **ezagun diren** fruitu esferiko batzuetatik dator argia. Juan Garzia

Gehienengan, **ezagun zen** bozkarioa. Aingeru Epaltza

Bai, hi ere horietakoa haiz, noski; hizkeran **ezagun duk** . Elizen arteko biblia

Ilunpean, haien hazpegien ikustea neke zen baina gorputzen sendotasuna **ezagun zen** . Elena Touyarou

Bazterrak beti bezain jendez beterik dauden arren, **ezagun da** aparteko urrina. Aingeru Epaltza

Ezagun izaten zuten aldartean. Xabier Montoia

Aurpegikeran **ezagun duk** ez duala ulertzen nire mendeku gosea. Xabier Olarra

Esteban Urkiaga Lauaxeta Gasteizen fusilatu zuten, 1937ko ekainaren 25ean, **ezagun denez** . Jokin Urain

Ezagun zen egun batez gure kontra altxatuko zirela berriz. Michel Oronoz

Hasi gintunan dantzan, eta oso ondo egiten zinan, nik baino askozaz hobeto, eta edozein dantza klasetan gainera; **ezagun zinan** bazuela hartarako etorria, eta ni baino arituagoa zela. Xabier Mendiguren Elizegi

Habe- zutabe- eta zubi-lana egiten duten hezurretako arazoak **ezagun zaizkio** egitura-ingeniariari. Irene Aldasoro

Ezagun zaizkit , halaber, usainak eta soinuak oro. Jon Alonso

Mitxelenaren *FHV, Sobre el pasado de la lengua vasca* eta beste zenbait lanez geroztik **ezagun zaizkigu** , besteak beste, zubererazko ü-ü eta erronkarierazko u-u egitura "adostuak". Lourdes Oñederra

Orduan izango diat aukera oharkabean zaintzeko, eta, batere ez naik atzeratuko, gainera, Irkutskera lehenbailehen iristeko ni bezain presati dagoela **ezagun zaiok** eta. Karlos Zabala

Ezagun zitzaion ahairea hartu, elizan hainbatetan adituetarik bat menturaz, eta bat-batean berak asmatutako hitzez apaindu zuen. Itxaro Borda

Matrikula ikusi gabe ere **ezagun zitzaizkion** urteak eta pintura zahar-estaliak metalezko zaldiari. Aingeru Epaltza

Lehen aldia duk habilela gauez hemen, **ezagun duk** . Koldo Izagirre

Ezagun zitzaion : barne borrokan zen, zerbait erranen ez erranen. Aingeru Epaltza

-Orduan -dio emakumeak-, **ezagun izango** duzu beharbada Borgesek idatzitako hura: [...]. Imanol Zurutuza

Goio arrotz hari begira geratu zen, sor eta lor, eta ezari ezarian erdi **ezaguna egin** zitzaion. Joseba Sarrionandia

Azken aldian, oso **ezagunak** egin dira globalizazioaren ondorio latzak salatzen dituzten taldeak. Iñaki Heras

· Bestetik, gero eta **ezagunagoa** den ikuspegi ezkorra edo heterodoxoa. Iñaki Heras

- **Ezagun-ezagun da** ez zarela merkataria! -ohartarazi zuen judu txikiak. Karlos Zabala

Ezagun-ezagunak ditut zure atsekabea eta pobretasuna Elizen arteko biblia

5 (du aditz gisa)

Ezaguna dut zuen borondate ona, eta horrek harro ibilarazten nau Mazedoniakoen aurrean. Elizen arteko biblia

Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabaltasuna. Elizen arteko biblia

Ezagunak ditugu , izan ere, estatu baten barruan ematen diren erregioen arteko diferentzia ekonomikoak. Iñaki Heras

Ezagunak ditugu Satanasen azpikeriak, eta ez dugu nahi arazo honetan hura irabazian ateratzerik. Elizen arteko biblia

Gero tabernetan sartzen ziren, ardo zuria edatera eta **ezagunak** zituzten abestiak kantatzera. Felipe Juaristi

6 (izenlagunekin)

Ezagun da segurki bozak hurbiltzen ari direla. Herria

Aski **ezaguna** baita Judaren leinutik datorrela gure Jauna. Elizen arteko biblia

Schumannen lieder bat, alegia, kanta bat jo zuen, Austria eta Alemanian ez ezik, mundu guztian ere oso **ezaguna** zelako. Felipe Juaristi

Gogo beroz lotu nintzaion gaur egun arras **ezagun den** "Hizkuntza landuz Nirvanarantz Sexu bidez" izeneko Zentro Budista antolatzeari Ondo **ezaguna** dut zuen errebeldien neurrigabea eta zuen bekatuen astuna. Josetxo Azkona

Laster **ezagun da** arrantzalearen begietan oraindik uraren uhinak eta izarniadura islatzen direla eta arrain iheskor baten itzalak estaltzen diola aurpegia. Pello Lizarralde

Berehala **ezagun da** armada gizona dela, lehenik bere soinekoen gatik, baina gehiago oraino papoaren bete dituen medaila, xingola eta gurutzeen gatik. Michel Oronoz

Urrunetik **ezagun zen** axalaren kolore beldurgarria. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Egia da, hobeki **ezagun** direla murruen nibel desberdinak, harri mota desberdinak, leiho forma desberdinak. Michel Oronoz

• **7** (adiz gisa forma trinkoetan)

Nork ez dakusa eta ez **dazagu** horiek artean ez direla berdin, aurpegiaren figuran eta gorputzaren izaeraz gainera, arimaren bertute eta bizioetan ere? Askoren artean

Ondorioz, Hura **dazaguen** guztia Beraren gogokoa eta hurbila da, eta ez **dazaguena** , aldiz, Haren haserre eta urruntasunaren objektu. Xabier Kintana

Egiazki, nik ez nerrake gizon horrek elefantea, bera denaren kontra irudikatzen duenik, ez eta elefantea era ezosoaz **dazaguenik** ere. Xabier Kintana

8 ***ezagunko*** *ipar* (aditz gisa era etorkizunean)

Uztail erditsutarik harat, hobeki **ezagunko** da zeri buruz goatzin. Herria

Denak untsa joanez haatik, **ezagunko** da poxiño bat bederen eta Sarkozy-k eskualde hortarik tantoño batzu baztertzen ahalko ditu. Herria

Nun nork nola hartuko dituen proposamen horiek, hori da ondoko hilabetetan hobeki **ezagunko** . Herria

Autobideak bixta kentzen diotela eta arrabots handia ekartzen, oraino gehiago **ezagunko** dela hori autobidea zabaltzearekin. Herria

Orduan, menturaz, gauzak, edo gauza batzu behin, argiago **ezagunko** dira? Herria

Orduan hobeki **ezagunko** ote da zoin arbola zen armarria horietan ezarria? Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

adiskide eta ezagun (4); **adixkide eta ezagun** (5); **ahots ezagun** (16); **ahots ezagun bat** (5); **ahots ezagun batek** (6); **aktore ezagun** (5); **artean ezagun** (6); **artista ezagun** (6); **aski ezagun** (10); **aspaldiko ezagun** (11); **aspaldiko ezagun bat** (5); **aurpegi ezagun** (20); **aurpegi ezagun bat** (4); **baina ezagun** (9); **bat ezagun** (5); **bere burua ezagun** (5); **bere ezagun** (7); **bertso ezagun** (4); **burua ezagun** (5); **da ezagun** (20); **dira ezagun** (6); **edo ezagun** (4); **egin da ezagun** (5); **egin zen ezagun** (52); **egin zuen ezagun** (10); **ere ezagun** (20); **eta ezagun** (50); **eta ezagun du** (4); **eta ezagun egin** (4); **eta ezagun zuen** (5); **ezagun asko** (31); **ezagun askok** (7); **ezagun askoren** (6); **ezagun bat** (116); **ezagun bat ikusi** (6); **ezagun batean** (13); **ezagun batek** (42); **ezagun batekin** (12); **ezagun bateko** (9); **ezagun baten** (37); **ezagun bati** (21); **ezagun batzuek** (6); **ezagun batzuen** (12); **ezagun batzuk** (23); **ezagun bihurtu** (17); **ezagun bilakatu** (7); **ezagun da** (59); **ezagun dela** (6); **ezagun den** (9); **ezagun dena** (4); **ezagun dira** (7); **ezagun diren** (10); **ezagun du** (40); **ezagun dute** (10); **ezagun duzu** (6); **ezagun edo** (9); **ezagun egin** (54); **ezagun egin den** (5); **ezagun egin diren** (5); **ezagun egin zen** (14); **ezagun egin zuten** (4); **ezagun egingo** (5); **ezagun egiten** (17); **ezagun ere** (8); **ezagun eta** (102); **ezagun eta adixkide** (9); **ezagun ez** (11); **ezagun ezagunak** (8); **ezagun ezagunak ditut** (6); **ezagun guztiak** (16); **ezagun guztian** (7); **ezagun guztiei** (5); **ezagun guztiek** (5); **ezagun guztien** (4); **ezagun hau** (10); **ezagun hauek** (4); **ezagun hori** (5); **ezagun horien** (4); **ezagun horrek** (4); **ezagun horren** (7); **ezagun hura** (14); **ezagun izan** (4); **ezagun samarra** (4); **ezagun samarrak** (4); **ezagun ugari** (16); **ezagun ugari bildu** (4); **ezagun ugarik** (4); **ezagun zahar** (4); **ezagun zein** (4); **ezagun zen** (32); **ezagun zituen** (4); **ezagun zitzaion** (6); **ezagun zuen** (70); **familia ezagun** (4); **garbi ezagun** (7); **gure ezagun** (8); **hain ezagun** (11); **hainbat aurpegi ezagun** (4); **hor ezagun** (5); **horren ezagun** (4); **idazle ezagun** (19); **izen ezagun** (16); **izen ezagun asko** (5); **izenez ezagun** (5); **izenez ezagun egin** (4); **jende ezagun** (16); **jende ezagun ugari** (4); **kanta ezagun** (9); **kanta ezagun baten** (4); **kantu ezagun** (12); **kide ezagun** (5); **kirolari ezagun** (4); **lagun eta ezagun** (4); **lan ezagun** (4); **liburu ezagun** (6); **mundu ezagun** (5); **mundu ezagun guztian** (5); **munduan ezagun** (5); **musikari ezagun** (5); **nire ezagun** (20); **oso ezagun** (16); **oso ezagun egin** (4); **osoan ezagun** (4); **pasarte ezagun** (4); **pertsona ezagun** (20); **pertsonaia ezagun** (9); **politikari ezagun** (4); **sukaldari ezagun** (4); **talde ezagun** (11); **zen ezagun** (61); **ziren ezagun** (9); **zuen ezagun** (15); **zure ezagun** (5); **zuten ezagun** (4)

adibide ezaguna (5); **ahots ezaguna** (4); **ahotsa ezaguna** (4); **aktore ezaguna** (5); **arras ezaguna** (11); **artean oso ezaguna** (4); **aski ezaguna** (69); **aski ezaguna baita** (4); **aski ezaguna da** (26); **aski ezaguna zen** (6); **aspaldiko ezaguna** (15); **aspalditik ezaguna** (6); **aurpegi ezaguna** (13); **aurpegi ezaguna da** (5); **aurpegia ezaguna** (8); **aurpegia ezaguna egiten** (4); **aurretik ezaguna** (6); **baina ezaguna** (5); **baino ezagunagoa** (14); **baino ezagunagoa da** (5); **bat ezaguna** (8); **batean ezaguna** (4); **bereziki ezaguna** (4); **bezain ezaguna** (16); **bezala ezaguna** (11); **bezala ezaguna zen** (7); **bikote ezaguna** (4); **da ezaguna** (51); **da ezagunagoa** (6); **da hain ezaguna** (9); **da oso ezaguna** (7); **edo ezaguna** (4); **egin zen ezaguna** (6); **egoera ezaguna** (6); **ere ezaguna** (36); **ere ezaguna da** (8); **ere oso ezaguna** (5); **espainiar ezaguna** (4); **eta aski ezaguna** (5); **eta ezaguna** (37); **eta ezaguna da** (4); **eta ezagunagoa** (11); **eta oso ezaguna** (5); **ez da ezaguna** (10); **ez zen ezaguna** (5); **ezaguna bada** (5); **ezaguna baita** (19); **ezaguna baitzen** (9); **ezaguna balitz** (8); **ezaguna balitz bezala** (8); **ezaguna balu** (5); **ezaguna balu bezala** (4); **ezaguna bihurtu** (9); **ezaguna bihurtu zen** (4); **ezaguna bilakatu** (8); **ezaguna bilakatu zen** (4); **ezaguna da** (297); **ezaguna da bere** (8); **ezaguna da eta** (9); **ezaguna da oso** (8); **ezaguna dela** (8); **ezaguna delako** (4); **ezaguna den** (65); **ezaguna dena** (10); **ezaguna denez** (17); **ezaguna du** (8); **ezaguna dugu** (21); **ezaguna dut** (7); **ezaguna dute** (6); **ezaguna duzu**

(9); **ezaguna duzue** (4); **ezaguna edo** (6); **ezaguna egin** (56); **ezaguna egin da** (5); **ezaguna egin den** (8); **ezaguna egin zen** (11); **ezaguna egin zitzaidan** (6); **ezaguna egin zitzaion** (10); **ezaguna egingo** (6); **ezaguna egiten** (60); **ezaguna egiten zaio** (5); **ezaguna egiten zait** (13); **ezaguna egiten zitzaidan** (6); **ezaguna egiten zitzaion** (11); **ezaguna ere** (16); **ezaguna eta** (58); **ezaguna eta estimatua** (5); **ezaguna ez** (36); **ezaguna ez den** (8); **ezaguna ez zen** (7); **ezaguna gertatzen** (5); **ezaguna iruditu** (4); **ezaguna izan** (43); **ezaguna izan zen** (18); **ezaguna izango** (13); **ezaguna izanik** (6); **ezaguna izateak** (4); **ezaguna naiz** (5); **ezaguna nuen** (28); **ezaguna zaigu** (4); **ezaguna zaigun** (4); **ezaguna zela** (7); **ezaguna zelako** (6); **ezaguna zen** (118); **ezaguna zen emakumea** (4); **ezaguna zen eta** (5); **ezaguna zena** (7); **ezaguna zitzaidan** (10); **ezaguna zitzaion** (10); **ezaguna zuen** (36); **ezaguna zuten** (6); **ezagunagoa da** (17); **ezagunagoa dela** (4); **ezagunagoa den** (8); **ezagunagoa egin** (4); **ezagunagoa izan** (4); **ezizenez ezaguna** (4); **ezizenez ezagunagoa** (12); **gauza ezaguna** (15); **gauza ezaguna da** (6); **gero eta ezagunagoa** (6); **gisa ezaguna** (13); **gisa ezagunagoa** (8); **gizon ezaguna** (4); **guztiz ezaguna** (8); **hain ezaguna** (47); **hain ezaguna den** (9); **hain ezaguna egin** (4); **hain ezaguna ez** (4); **hau ezaguna** (8); **herrian ezaguna** (5); **historia ezaguna** (6); **hori ezaguna** (9); **hori ezaguna egiten** (4); **hori oso ezaguna** (7); **horren ezaguna** (5); **hura ezaguna** (7); **idazle ezaguna** (10); **izen ezaguna** (4); **izena ezaguna** (5); **izenarekin ezaguna** (4); **izenez ezaguna** (8); **jada ezaguna** (4); **jadanik ezaguna** (7); **jende ezaguna** (21); **kanta ezaguna** (4); **kantari ezaguna** (6); **kantu ezaguna** (7); **kide ezaguna** (4); **kontu ezaguna** (5); **lehendik ere ezaguna** (4); **lehendik ezaguna** (4); **lelo ezaguna** (5); **liburu ezaguna** (5); **mundu osoan ezaguna** (4); **munduan ezaguna** (6); **musika ezaguna** (5); **musikari ezaguna** (4); **nahiko ezaguna** (7); **nahiko ezaguna da** (6); **obra ezaguna** (4); **ondo ezaguna** (9); **ongi ezaguna** (7); **opera ezaguna** (4); **ordurako ezaguna** (6); **oso ezaguna** (136); **oso ezaguna da** (31); **oso ezaguna den** (6); **oso ezaguna egin** (8); **oso ezaguna eta** (4); **oso ezaguna ez** (8); **oso ezaguna izan** (6); **oso ezaguna zen** (23); **oso pertsona ezaguna** (4); **osoan ezaguna** (7); **pertsona ezaguna** (11); **pertsona ezaguna da** (5); **talde ezaguna** (6); **veronica bezala ezaguna** (7); **zen ezaguna** (23); **zen oso ezaguna** (4); **zerbait ezaguna** (5); **zitzaion ezaguna** (4)

aldizkari ezagunak (4); **arras ezagunak** (6); **artean ezagunak** (5); **artista ezagunak** (6); **aski ezagunak** (40); **aski ezagunak dira** (14); **aspaldiko ezagunak** (19); **aurpegi ezagunak** (16); **baina ezagunak** (4); **batzuk ezagunak** (9); **bertso ezagunak** (4); **bezain ezagunak** (4); **denak ezagunak** (6); **dira ezagunak** (18); **edo ezagunak** (4); **egile ezagunak** (4); **ere ezagunak** (13); **ere ezagunak dira** (7); **eta ezagunak** (27); **eta oso ezagunak** (4); **ez hain ezagunak** (8); **ez oso ezagunak** (5); **ezagun ezagunak** (8); **ezagun ezagunak ditut** (6); **ezagunak bildu** (4); **ezagunak dira** (141); **ezagunak dira oso** (5); **ezagunak direla** (4); **ezagunak direlako** (5); **ezagunak diren** (39); **ezagunak diren hainbat** (4); **ezagunak direnak** (5); **ezagunak ditu** (9); **ezagunak ditugu** (8); **ezagunak ditugun** (4); **ezagunak ditut** (12); **ezagunak ditut zure** (6); **ezagunak dituzte** (6); **ezagunak edo** (5); **ezagunak egin** (13); **ezagunak egingo** (5); **ezagunak egiten** (17); **ezagunak ere** (13); **ezagunak eta** (35); **ezagunak eta ezezagunak** (7); **ezagunak ez** (33); **ezagunak ez diren** (15); **ezagunak izan** (23); **ezagunak izan arren** (4); **ezagunak izan ziren** (4); **ezagunak izango** (6); **ezagunak izango dira** (4); **ezagunak nituen** (11); **ezagunak zaizkigu** (5); **ezagunak zaizkigun** (6); **ezagunak zaizkit** (4); **ezagunak ziren** (36); **ezagunak zituen** (18); **ezagunak zitzaizkidan** (5); **gehienak ezagunak** (5); **guztiz ezagunak** (5); **hain ezagunak** (28); **hain ezagunak ez** (6); **hitz ezagunak** (7); **horiek ezagunak** (5); **horren ezagunak** (5); **idazle ezagunak** (10); **izen ezagunak** (9); **izenez ezagunak** (5); **jende ezagunak** (4); **jokalari ezagunak** (5); **kantu ezagunak** (9); **kazetari ezagunak** (4); **lagun eta ezagunak** (5); **lagunak eta ezagunak** (4); **lehendik ezagunak** (5); **musikari ezagunak** (4); **nahiko ezagunak** (5); **ondo ezagunak** (7); **ongi ezagunak** (5); **oso ezagunak** (54); **oso ezagunak dira** (15); **oso ezagunak diren** (5); **oso ezagunak ziren** (4); **osoan dira ezagunak** (5); **pertsona ezagunak** (4); **pertsonaia ezagunak** (5); **pertsonaia ezagunaren** (4); **talde ezagunak** (4); **talde ezagunarekin** (5); **ziren ezagunak** (7)

artean ezagunena (4); **artean ezagunenak** (5); **artista ezagunen** (8); **aurpegi ezagunen** (5); **bere lanik ezagunenak** (4); **da ezagunena** (11); **dira ezagunenak** (10); **edo ezagunen** (6); **errepublikano ezagunen** (4); **errepublikano ezagunen abokatua** (4); **eta ezagunei** (4); **eta ezagunek** (14); **eta ezagunek** (14); **eta ezagunekin** (7); **eta ezagunekin** (7); **eta ezagunen** (19); **eta ezagunen artean** (5); **eta ezagunena** (9); **eta ezagunenak** (7); **eta ezagunez** (6); **ezagunek ere** (4); **ezagunek ere** (4); **ezagunek eta** (4); **ezagunek eta** (4); **ezagunek osatutako** (4); **ezagunek osatutako** (4); **ezagunekin batera** (6); **ezagunekin batera** (6); **ezagunen abokatua** (4); **ezagunen abokatua zen** (4); **ezagunen artean** (26); **ezagunen arteko** (4); **ezagunen bat** (19); **ezagunen batek** (7); **ezagunen batekin** (7); **ezagunen baten** (10); **ezagunen eta** (7); **ezagunen izenak** (5); **ezagunen lanak** (4); **ezagunena da** (8); **ezagunena eta** (7); **ezagunena ez** (4); **ezagunenak eta** (5); **ezagunenetako bat** (25); **ezagunenetako bat da** (6); **ezagunenetako batzuk** (9); **ezagunenetakoa da** (10); **ezagunetako bat** (7); **ezagunik aurkitu** (4); **ezagunik ez** (9); **ezagunik gabe** (4); **ezagunko da** (4); **hainbat pertsona ezagunek** (10); **hainbat pertsona ezagunek** (10); **hobeki ezagunko** (6); **idazlerik ezagunenetako** (4); **izen ezagunen** (7); **izen ezagunen artean** (4); **kantu ezagunenak** (6); **lagun eta ezagunen** (6); **lagun ezagunek** (7); **lagun ezagunek** (7); **lan ezagunenak** (4); **lanik ezagunena** (4); **lanik ezagunenak** (9); **libururik ezagunena** (4); **obrarik ezagunenak** (4); **pertsona ezagunek** (20); **pertsona ezagunek** (20); **pertsona ezagunen** (9); **pertsonaia ezagunen** (4)

---

ezagungabeko *izlag* ezagun ez dena.

Nik, adiskideak, kolpe bakoitzean ordu arte **ezagungabeko** plazera sentitzen dut. Matías Múgica

---

ezagungarri *izond* ezaugarria.

Ezagutu aurretiko espezie **ezagungarria**, ikasten denean sortzen den ikaslearen ezagutza, eta hirugarrenik, aurreko biak uztartzen dituen nahimena. Horrek kanpo-forma bat sortzen zuen haren pertzepzioetarako, eta, harekin, estilo bat nabarmenarazten, berezkoa eta **ezagungarria**. Imanol Unzurrunzaga

Ezagungarri zen, bere burua ezagutu aurretik baina ez zegoen beragan beraren ezagutzarik, bere burua ezagutzen ez zuenean. Imanol Unzurrunzaga

Nadiak, berriz, urrats horiei txandapasa egin, eta marrazki nabarmenki **ezagungarri** eta irudi xehekoak egiten zituen. Xabier Olarra

Arima bere baitan da, bere buruari arima deitzen baitio; baina ezagule, ezagutu edo **ezagungarri**, ezagutzen duen heinean bakarrik; eta maitagarri, maitea edo maitale bere burua maite duen heinean. Imanol Unzurrunzaga

Ezagutu aurretik dira **ezagungarriak** eta bere buruaren gnosia sortarazten dute ikaslearengan. Imanol Unzurrunzaga

---

ezagunki *adlag* **

Ezagunki, arraza indoeuroparren teoria, hizkuntza indoeuroparren lurkartaren gainean asmatu da, eta beste oinarririk gabe. Joxe Azurmendi

Boterearen tresna efikazenetako bat gizartea manipulatzeko eta kontrolatzeko, **ezagunki**, eskola edo hezkuntza da. Joxe Azurmendi

---

ezagunpen ik **ezagupen**.

---

ezagunxe *adlag* ezagun xamarra.

Lehendik ere **ezagunxe** duen egoera: kalme eta orekan, jabalduran, eta beti bera izatearen sentsatzioan. Jose Angel Irigaray

---

ezagupen *(orobat **ezagunpen** g.er.)* **1** *iz* ezagutzea, ezaguera; ezagutzen diren gauzen multzoa. ik**ezagumendu**.

Pentsamenduez, ideiez eta **ezagupenez** dihardugunean. Xabier Arregi

Batak bestearen akatsen **ezagupena** aitortzea da egia maitatzeak ezartzen digun eginbehar gorena. Xabier Olarra

Horretarako enpirikoki baino eman ezin daitezkeen indar errealen **ezagupena** behar da, adibidez, indar higitzaileen **ezagupena**, edo gauza bera dena, halako indarrak iragartzen dituzten hurrenez hurrengo agerpen jakinen **ezagupena**. Ibon Uribarri

Hipotesi zintzoak dira eta gertaeren berri ematen dute, baina zein garbi sentitzen dudan nigandik datozela, nire **ezagupenak** bateratzeko modua besterik ez direla. Monika Etxebarria

Ez dago beste sendagairik norberaren **ezagupena** eta benetako aitortza egiazkoa baino. Hasier Etxeberria

Gure **ezagupenak** aurreratzen ari dira; pazientzia galarazteko moduko moteltasunez, baina. Xabier Olarra

Nola urak itsasoa, hala beteko du lurra Jaunaren aintzaren **ezagupenak**. Elizen arteko biblia

Nik oso argi ikusten dut zientzia guztien egiaren ziurtasuna Jainkoaren egiaren **ezagupenean** datzala, eta ez beste ezertan. Askoren artean

Honekin aditzera ematen da izpirituak bere atxikitasuna kendu duela, bere **ezagupenetik** eta bere egitatetik. Joan Mari Lekuona

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Kontuan izan gabe **ezagupen** zientifikoak eta gai filosofikoak. Xabier Arregi

Egia da askok ikasi zutela itxura batean "jarduten" eta gizalegearen kanpoaldeko **ezagupen** formala behintzat erakusten. Xabier Olarra

Ezagupen inplizitu hori, pertsona normal guztiek bizitza osoan zehar eskarmentuaren bidez eta besteekiko harremanetan pilatu eta sortzen dutena. Xabier Olarra

Sentsuen mundutik at egiten dugun lehen urratsak behartzen gaitu behar-beharrezko zerizanaren azterketaren gure **ezagupen** berria hastera eta bere adigaitik abiatuta gauza guztien adigaiak eratortzera. Ibon Uribarri

Arrazoimena bera eta bere pentsatze hutsa soilik dira nire autugaia, eta hauen **ezagupen** xehea ez dut nigandik urrun bilatu behar, nigan aurkitzen baititut. Ibon Uribarri

Ezagupen maitatia, atsegina eta esentziazkoa. Joan Mari Lekuona

Molde guztiz desberdinez definitzen du giza arima zer den, **ezagupen** orotarikoa edo berezia erabiliz. Imanol Unzurrunzaga

Ezagupen beharrezkoen eta erantzukizun gehieneko erabakiaren artean beti dago eta egon behar du "leize bat"ek. Joseba Zulaika

Poetaren **ezagupen** berezkoena, Danteren tradizioan, infernuetara jaistea zela. Joseba Zulaika

Ideia berriek, ikusmenezko **ezagupenek**, ihes egiten zioten gogamenetik. Xabier Olarra

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezagupen irudi mota bi bereizi behar dira, bata aholkulariaren nahimenetik dator -hala izan zen deabruarena, gizakiak amore emanez bekatu egin zuenekoa-, eta bestea arimaren arretaren edo gorputzaren sentimenen mendean dauden gauzetatik datorrena. Imanol Unzurrunzaga

Euskal mundua kudeatzen duen elitearen aurrean izateko, laborantza gune edo langileriatik ilkitako gaztearentzat **ezagupen** ildo bat suertatu da. Itxaro Borda

Epistemea ez da **ezagupen** era bat edo arrazionaltasun-mota bat. Xabier Arregi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garunetik kolore-**ezagupenak** erabat erauzi balizkiote bezala, iraganaz gabetua zen, bere iragan kromatikoaz. Xabier Olarra

Ikasketa hauen helburua ez zen zientzia **ezagupenak** eskuratzea, baizik trebetasun jakin batzuk lortzea gero zuzenean aplikatuko zirenak, behin unibertsitatea utzi ondoren. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azkenean, kolorearen oroimena ere galdua zuela zirudien; beraz, kolorea ez zen gehiago haren gogamen-**ezagupenaren** eta haren gogamenaren osagai. Xabier Olarra

Ez du sekula izango gizarte-**ezagupen** normala taxutzeko gizarte-eskarmentu normalik. Xabier Olarra

Bi definizioak (imanarena eta hauxe) mila zientzialari ospetsuren lanetatik laburtuak dira, iluntasun oro uxatuz haiek argitu baitute gaia, eta giza **ezagupenaren** aurrerapen estimagarria lortu. Xabier Olarra

Baina niri dagokidanez, alferrik saiatu naiz nire geografia **ezagupenetan** ikertzen, besteak ere ez dira ni baino jakitunagoak izan. Urtzi Urrutikoetxea

Betaurrekoak kendu zizkiotenean, Virgilek lehenbizi ezagutu zituen formak oftalmologoaren zeinu-taulako letrak izan zirenez, lehenbizi letra **ezagupen** proba egitea erabaki genuen. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da ezagupen (3); **duten ezagupenak** (3); **espainolaren ezagupen** (3); **espainolaren ezagupen ona** (3); **eta ezagupen** (4); **euskal herriaren ezagupena** (3); **euskararen ezagupen** (4); **euskararen ezagupen ofizialaren** (3); **ezagupen bat** (10); **ezagupen baten** (3); **ezagupen berezi** (4); **ezagupen eta** (5); **ezagupen hori** (6); **ezagupen ofiziala** (3); **ezagupen ofizialaren** (5); **ezagupen ona** (4); **ezagupena eta** (4); **gisako ezagupena** (4); **herri gisako ezagupena** (4); **herriaren ezagupena** (3); **hizkuntzen ezagupena** (3); **legezko ezagupen** (4)

---

ezagupide ik **ezaupide**.

---

ezagutarazi, ezagutaraz(i), ezagutarazten *(orobat **ezagut-arazi** g.er. eta **ezaguarazi** g.er.)* **1** du *ad* ezagutzera behartu.

Txillardegiri, / gurean beste inork ez bezala / ezagutu eta **ezagutarazi** dituelako / Europako herriak eta hizkuntzak. Edorta Jimenez

INEMek langabeziari buruzko azken datuak **ezagutarazi** bezain laster, bere bulegoetan lan bila izena eman dutenen %43k ez dituztela langabetzat jotzen salatu du LAB sindikatuak. Berria - Ekonomia

Bere asmo ezkutua, bere onginahiaz erabakia zuen asmoa, **ezagutarazi** digu: [...]. Elizen arteko biblia

Seguruenik, han geratu izan banintz eta nire egoera **ezagutarazi** izan banio, gauzak ez ziren gertatu ziren bezala gertatuko. Patxi Zubizarreta

Liga amaiera arte itxaron gabe, atzo **ezagutarazi** zuen erabakia, ordea. Berria - Kirola

Euskal Kultur Erakundeak (EKE) Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak izeneko inkestaren emaitzak **ezagutarazi** ditu. Berria - Harian

Kalte-ordainak jasoko dituztenen zerrenda **ezagutarazteak** ez ditu kritikok urritu. Berria - Euskal Herria

Kandidaturak **ezagutarazi** behar dira 2005eko urtarrilaren 7a baino lehen. Herria

Inongo minik ez daukanari etor dakizkiokeenak (hau da, lekizkiokeenak) behar zaizkio **ezagutarazi** (alias "aurre-zainketa", "profilaxia"), erremedio bila has dadin eta inongo minik izan ez dezan. Iñaki Segurola

Joan den mende erdiko miseriak konda ditzaketen jendeak gero eta gutiago dira eta oroitzapen ilun haiek ez daitezen biktimekin batera ehortz, belaunaldi gazteei **ezagutarazi** behar zaizkie, hauek ondoko belaunaldiei jakinarazteko, horrelakorik ez dadin berriz gerta. Eneko Bidegain

Bihotzetik eskerrak xehetasun balios batzuk **ezagutarazi** dizkidaten adiskideeri: Mikel Aguirre, Alexandre Alchourroun, Ricardo Arratibel, Salvador Bidegain, Jakes Casaubon, [...]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Esaera hauek jakinduria **ezagutarazi**, heziketa eman eta esaldi sakonak ulertarazteko dira. Elizen arteko biblia

Izan zituen irakasle guztiz aipatuak, hala nola Santxo Carranza, Miranda-koa, Toledoko artzapezpiku dohakabe Bartolomeren osaba, Joanes Handiaren irakaspena **ezagutarazi** ziona. Piarres Xarriton

Orain nork edo nork galda baleza zer zeinuk **ezagutaraziko** digun, bada, substantzien ezberdintasuna, hark irakur ditzala ondoko proposizioak erakusten baitute Izadian substantzia bakar bat baizik ez dela existitzen eta hau absolutuki mugagabea dela. Piarres Xarriton

Elejiraren helburua da, gure dantzari, kirolari, intelektual, kantari, antzerkigile eta hizlariak mugimenduan jartzea, eta sortzen duten kultura **ezagutaraztea**. Patziku Perurena

Jose Migel Barandiaranen izena, izana eta obra zaintzea, gordetzea eta **ezagutaraztea** izango dira Barandiaran museoaren helburu nagusiak. Berria - Harian

Ekarpen xumea, nahi bada, eta handiusterik gabe egina; baina garrantzitsuena ere bai: Frantziskoren irudia **ezagutarazi** eta zabaldu, altxor hori bahiturik eduki gabe. Askoren artean

«Artista **ezagutarazi** eta haren obra berreskuratu» nahi dute. Berria - Kultura

Koroatzearen ondoko egunetan, Erregea Erregeen Jauregiko tronuan eseri zen, eta ebazpenak **ezagutarazi** zituen. Agustin Otsoa

Ezagutzaren oinarria Naturaren argiak **ezagutarazitako** argudioen gainean eratzen da. Askoren artean

Jaunak, ordea, esan zion: - Zoaz, neure zerbitzurako hautatua baitut gizon hori, bai jentilei eta haien erregeei, bai israeldarrei, nire izena **ezagutaraz** diezaien. Elizen arteko biblia

Jakizu Jakintsuen Printzeak, Moises gure maisuak (bakea bego harekin!) bi erregu egin zizkiola Jainkoari, eta bien erantzunak jaso zituela: batean Jainkoari (gorets bedi!) eskatu zion jakinaraz ziezaiola Bere egiazko esentzia; bestean, lehenik egina berau, Bere atributuak **ezagutaraz** ziezazkiola. Xabier Kintana

Izan dira lehenago ere Asisko Frantzisko gure herriari euskaraz **ezagutarazteko** saioak, zatikakoak izan badira ere. Askoren artean

Horretaz jabeturik, urari goiti ibiltzea nahiago duen idazleak merkatuari bizkarra erakusten badio, uko egiten dio bere lana **ezagutarazteko** aukerari. Anjel Lertxundi

Kazetariei informazio iturriak **ezagutarazteko** exijitzeak kazetaritza ikerketa oinarriei erasotzen diela dio erakunde horrek. Berria - Gaiak

Ikusi orduko ezagutu zituen Josek bere senideak. Baina ez zien bere burua **ezagutarazi**. Elizen arteko biblia

Obrako arduradunek **ezagutarazi** zutenez, sei hilabete behar izan ziren solidarioek moztutako kableak jarri ahal izateko. Edurne Elizondo

Froga harriak urrea **ezagutarazten** duen bezala, halaber, adierazpenak adimena. Askoren artean

Horretan guztian ageri den helburu bakarra Torah-ren misterioen ideia metafisikoak **ezagutaraztea** dela, jada erakutsi dugunez. Xabier Kintana

Langabeziako azken zenbakiak **ezagutaraziak** izan dira. Herria

Atzo Israelgo Haaretz egunkariak **ezagutarazi** zuenez, bukatu berri den urrian Israelgo Armadak 165 palestinar hil ditu, horietatik 159 Gazako eskualdean. Berria - Mundua

Zer uste duzue egin zuela haren lagun xakurrak? Etxerat itzuli bera bakarrik, dena seinale, lausengu eta intziri, bai-eta han ibili, etxetik eta nausiaren ixtripu tokira, hunen abisua **ezagut-arazi** artean gaixoak. Herria

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Iraileko batzorde iraunkorrean berexiak zituen 64 000 euro Garazi/Baigorriko kooperatibarentzat, ukan ditzan ahalak saltzen dituen salgaien etorkia ongi **ezagut-arazteko**. Herria

Zinez jakinarazi eta **ezagutarazi** nahi digulako eta barrenean sentiarazi, jaiera bizia izatea edo maitasun sutsua, malkoak edo espirituko beste edozein pozaldi izatea ez dela gure meritua, baizik osoro Jainko gure Jaunaren dohaina eta grazia. Patxi Altuna

Garibaik ez daki zer egin eta nola **ezagutarazi** hogei urteko lana. Anjel Lertxundi

Historia ofizialak ezkutatzen dituen matxinatuen gorabeherak nobelaren bitartez **ezagutaraztea** da horrenbestez zeure helburuetako bat. Markos Zapiain

Neure sentimenduen zintzotasunean hain dut bertzalde uste osoa, non sentimenduok zuri justifikatzeko aski baitut haiek zuri ontsa **ezagutaraztea**. Jon Muñoz

Erakutsi nahi duguna errazkiago adierazteko eta hobeki **ezagutarazteko**, Legeek ezin dute inor behartu, aurretiaz **ezagutaraziak** izan gabe. Piarres Xarriton

Emanen dizuet seinale bat, **ezagutaraziko** zaituztena. Piarres Aintziart

Nahi ditugu hango desberdintasunak eta kultura hemen gaindi **ezagutarazi**. Herria

Euskal mitologiaren ezaugarriak modu erraz eta laburrean **ezagutarazteko** gunea. Berria - Harian

Bada, ordea, orain dela urte gutxi **ezagutarazten** hasi den tratu txar mota bat: adinekoei ematen zaiena. Berria - Euskal Herria

Izpiritua hiru partetan partiturik, honela **ezaguarazten** du euskal izpiritua -"psikologoren" batzuei jarraiki: [...]. Joxe Azurmendi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arduradunek ezagutarazi (3); **astean ezagutaraziko** (3); **atzo ezagutarazi** (24); **atzo ezagutarazi zuen** (8); **atzo ezagutarazi zuenez** (8); **atzo ezagutarazi zutenez** (3); **bat ezagutarazi** (5); **bere burua ezagutarazi** (10); **bere burua ezagutarazteko** (3); **bezala ezagutarazteko** (3); **burua ezagutarazi** (13); **burua ezagutaraztea** (3); **burua ezagutarazteko** (8); **datorren astean ezagutaraziko** (3); **datuak ezagutarazi** (3); **dela ezagutarazi** (3); **duela ezagutarazi** (3); **ere ezagutarazi** (6); **eta ezagutarazi** (13); **eta ezagutaraztea** (10); **eta ezagutarazteko** (11); **eta ezagutarazten** (6); **eta hobeki ezagutarazteko** (3); **ezagutarazi behar** (10); **ezagutarazi behar dira** (3); **ezagutarazi beharrez** (4); **ezagutarazi bezain** (3); **ezagutarazi ditu** (7); **ezagutarazi du** (36); **ezagutarazi du beste** (4); **ezagutarazi du nafarroako** (3); **ezagutarazi duenez** (20); **ezagutarazi dute** (10); **ezagutarazi dutenez** (4); **ezagutarazi eta** (21); **ezagutarazi nahi** (26); **ezagutarazi nahi dituzte** (3); **ezagutarazi nahi du** (3); **ezagutarazi nahi dute** (3); **ezagutarazi nahi izan** (3); **ezagutarazi nahian** (6); **ezagutarazi nahiz** (4); **ezagutarazi ondoren** (3); **ezagutarazi zion** (6); **ezagutarazi zituen** (15); **ezagutarazi zituzten** (6); **ezagutarazi zuen** (56); **ezagutarazi zuen atzo** (3); **ezagutarazi zuenez** (21); **ezagutarazi zuten** (19); **ezagutarazi zutenez** (9); **ezagutaraziak izan** (4); **ezagutaraziko ditu** (4); **ezagutaraziko dituen** (3); **ezagutaraziko ditugu** (3); **ezagutaraziko dituzte** (9); **ezagutaraziko dituztela** (3); **ezagutaraziko du** (10); **ezagutaraziko dute** (6); **ezagutaraztea da** (19); **ezagutaraztea du** (4); **ezagutaraztea du helburu** (4); **ezagutaraztea dute** (4); **ezagutaraztea eta** (14); **ezagutaraztea gatik** (3); **ezagutaraztea izan** (3); **ezagutaraztea izango** (7); **ezagutaraztea izango da** (3); **ezagutarazteari uko** (5); **ezagutarazteari uko egiteagatik** (3); **ezagutarazteaz gain** (3); **ezagutarazteko asmoarekin** (3); **ezagutarazteko asmoz** (5); **ezagutarazteko aukera** (3); **ezagutarazteko balio** (3); **ezagutarazteko eta** (18); **ezagutarazteko muntatzen** (3); **ezagutarazteko muntatzen direnak** (3); **ezagutarazteko parada** (4); **ezagutarazteko xedearekin** (4); **ezagutarazteko xedetan** (3); **ezagutarazten ari** (6); **ezagutarazten ari da** (3); **ezagutarazten du** (3); **ezagutarazten duen** (6); **ezagutarazten eta** (3); **gehiago ezagutarazi** (3); **gehiago ezagutaraztea** (3); **gehiago ezagutarazteko** (3); **gisa ezagutarazi** (4); **gobernuak ezagutarazi** (6); **gobernuak ezagutarazi duenez** (3); **hau ezagutarazi** (4); **herenegun ezagutarazi** (3); **hobeki ezagutarazi** (11); **hobeki ezagutaraztea** (4); **hobeki ezagutarazteko** (25); **hobeki ezagutarazteko eta** (4); **hobeto ezagutaraztea** (3); **informazio iturriak ezagutarazteari** (3); **itoizko koordinakundeak ezagutarazi** (7); **iturriak ezagutarazteari** (6); **iturriak ezagutarazteari uko** (5); **iturriek ezagutarazi** (4); **jendeari ezagutarazteko** (3); **kandidaturak ezagutarazi** (3); **kandidaturak ezagutarazi behar** (3); **koordinakundeak ezagutarazi** (8); **koordinakundeak ezagutarazi du** (6); **kultura ezagutaraztea** (3); **lana ezagutaraztea** (4); **lana ezagutarazteko** (12); **lanak ezagutarazi** (3); **nafarroako gobernuak ezagutarazi** (3); **nazioartean ezagutaraztea** (6); **nola ezagutarazi** (3); **obra ezagutarazteko** (5); **obrak ezagutarazteko** (3); **ondorioak ezagutarazi** (3); **ongi ezagutarazten** (3); **ripak ezagutarazi** (3); **taldeak ezagutarazi** (3); **zirela ezagutarazi** (3)

---

ezagutarazle *iz* ezagutarazten duena.

Aurten, Jondoni Joane Batixtaren bestarekin gertatu baita, saindu horren meza emana izan da... eta, ukan ditugun erakaspenetarik atxiki duguna da, bakotxak gure lekuan, behar ginduela izan, profeta haundi hori bezala, Jesus gure Salbatzaile maitearen **ezagutarazle** eta maitarazle. Herria

---

ezagutarazte *iz* ezagutzera behartzea.

«Instituzio horren zehazte, **ezagutarazte** eta zilegitze lana datozen hiru urteetan» burutu nahi lukete. Berria - Euskal Herria

---

ezagutaraztearren *adlag* ezagutarazteko.

Kanten bizitza aurkezterakoan, esfortzu estimagarria egin du Uribarrik pasadizo dibertigarriak **ezagutaraztearren**, funtsa baztertu gabe. Markos Zapiain

---

ezagutari *iz* ezagutzailea.

Gizakiok izatez -maitari, **ezagutari** eta hautari izanik- maita eginkizun gara. Jenaro Garate

Maitari naizela esatea, **ezagutari** eta hautari naizela baiestea da. Jenaro Garate

Gure gogoaren jardunak sorburu eta helburu berdinak dauzka: **ezagutari**, hautari izan; eta **ezagutariago**, hautariago egin. Jenaro Garate

Gizakia maitagogo izanik, **ezagutari** izanik, alfer-alferrekoa da gure ezagumenaren abstrakzioa egiten saiatzea, ezagumenez eginiko ezagumenaren abstrakzioa izango litzateke eta. Jenaro Garate

Horregatik askotan **'ezagutari'** hitza hobetsi dut, maitari eta hautari hitzen antzekoa, nik asmatua izan arren. Jenaro Garate

---

ezaguterraz *(orobat **ezagut-errex**) izond* erraz ezagutzen dena.

Gertatu izan da ere, norbait hunkitu ondoan, ihardespen bat ukan dugula beretik, beraz berdin xorrotxa, laster **ezagut-errexak** baiginuen gure aztapar larriekin. Herria

Gero zurrunga haiek zehatzago bihurtu ziren berehala, argiagoak, **ezaguterrazagoak**. Josu Zabaleta

Etxea inguratzen zuten ahotsen artean nahasita, **ezaguterraz** baina deszifraezin Zorra Kitorentzat, hantxe zeuden 124ko emakumeen pentsamenduak, esanezinak, esangabeak. Anton Garikano

---

ezagutezin *izond* ezin ezagutuzkoa.

Misterio **ezagutezina**. Jon Alonso

Bisaia **ezagutezina** duen arren, nabari zaio mutil gaztea dela, zu baino gazteagoa. Xabier Montoia

Herrien historiaren azpiko intrahistoria hori izan daiteke Natura (pixka bat Kant-en antzera), edo materialisten materia, edo indar absolutu ezezagun eta **ezagutezin** bat eraginkorra, efektuen ugaltzeko legearen arabera historia agerikoan biderkatzen dena (Spencer). Joxe Azurmendi

Hobe ez egitea egitea baino, hobe gogoetara ematea ekintzara baino, hobe beraren astrofisika, **Ezagutezinaren** atalasa, ezen ez nire kimika kiratsez, leherketaz eta misterio txiki ezdeusez oratua. Juan Garzia

Artean **ezagutezinak** ziren arrazoiengatik, erabaki ote zuen isiltasun-botoa egitea, eta bere burua mutu edukitzera behartzea, bere borondatea eta adorea neurtzearren. Oskar Arana

---

ezagutgarri ik **ezaugarri**.

---

ezagutu, ezagut(u), ezagutzen *(orobat **ezautu** g.er.)* **1** du *ad* gogoan zerbaiten berri izan edo zerbaiten ideia eduki; norbaiten edo zerbaiten berri jakin; norbait nor den gogoan izan edo ohartu, norbaitekin halako harremana izan.

Ezagutu adimenak egiten du, arrazoimenak ez! Askoren artean

Ideiekin (adibidez, Jainkoa) pentsatu egiten da -razionalki-, baina doi **ezagutu** ez. Askoren artean

Ez zuen nik **ezagutu** nuen agure bera ematen. Anjel Lertxundi

Irudi batean baliagarria izan daiteke ikusmenezko mundua **ezagutzea**, baina, era berean, plazer berezi bat ere ematen du. Josu Zabaleta

Ezagutzen al duzu Penmarch? Josu Zabaleta

Ruche jaunak ez zuen inor **ezagutzen** Brasilen, are gutxiago Manausen. Jon Muñoz

Hermann **ezagutu** zuen batek lerrook irakurriko balitu, harritu egingo litzateke: [...]. Anjel Lertxundi

Saulek **ezagutu** egin zuen Daviden ahotsa eta esan Elizen arteko biblia

2 (adizlagun eta kidekoekin)

Orain dena ilun ikusten dugu, ispiluan bezala; gero aurrez aurre ikusiko dugu; orain erdizka **ezagutzen** dut; gero oso-osoan **ezagutuko** dut dena, Jainkoak neu **ezagutzen** nauen bezala. Elizen arteko biblia

-Jack ongi **ezagutzen** dut. Ramuntxo Etxeberri

Baina nahi dut nahasketa oro baztertu eta, beraz, mintzo naiz bakarrik denok ongi **ezagutzen** dugun gauza batez, hots, adimenaz beraz, hura baita guztiok hobekienik **ezagutzen** dugun zerbait. Piarres Xarriton

Badakit, ondotxo **ezagutzen** dut nik ere sentimendu hori. Josu Zabaleta

Frantsesezko... -en, esaterako,...sudurkari bat entzuten da, baina oro har igurzkari sudurkaria ez da hizkuntzak ohartuki **ezagutzen** duen hots bat. Isabel Arrigain

Servetek gertutik **ezagutu** zituen erreformatzaile gailenak: Melantchon, Lutero, Zwinglio eta Calvino-rekin sutsuki eztabaidatu eta ez zuen inoiz arrazoiaz beste inposiziorik onartu nahi izan. Askoren artean

Nik, entzutez **ezagutzen** nuela. Anjel Lertxundi

Aurpegiz **ezagutzen** nituen mutil batzuk ikusi nituen Adlerhausera eraman behar gintuen trenaren lehendabiziko bagoian sartzen. Anjel Lertxundi

Egia orok zerikusia du unibertsalekin, eta horietariko batzuk zuzenean **ezagutu** behar ditugu haiei loturiko egiaren bat ezagutu nahi badugu. Askoren artean

Horrela **ezagutu** genuen Dylan. Eta, betidanik **ezagutu** izan banindu bezala, medikuak erran zidan, erdi haserre: [...]. Pako Aristi

Aspaldian **ezagutzen** ez nuen gogo gartsu batez. Anjel Lertxundi

Pertsonalki **ezagutzen** nituen gertaerak ez ezik ni neu ere azaltzen nintzela orrialde haietan, eta horregatik ausartu nintzela laugarren ale bat gauzatzera. Bernardo Atxaga

Nik gorputzaren adigaia aldez aurretik analitikoki **ezagut** dezaket adigai honetan pentsatutako ezaugarrien bitartez, hedadura, sarrezintasuna, tankera, eta abarren bitartez. Ibon Uribarri

Haurrak espazioa progresiboki **ezagutzen** duela azpimarratu nahi zuen Wallonek. Josu Zabaleta

Gaur egun, Erdi Aroko beste edozein testu irakurtzeko erabiltzen diren metodo historiko-kritikoei esker, tresna egokiak ditugu Asisko Frantzisko osokiago **ezagutzeko**. Askoren artean

Sartzekotan zelarik, atera aitzin, bistaz **ezagutzen** zuen pilotari batek azken dantza bat proposatu zion. Ramuntxo Etxeberri

Irakaspen hauetan guztietan, Ebanjelio santuan idatzirik daudenez, eta arrazoiz jantziriko arimaren berezko argiak ziurtasunez **ezagut** ditzakeenez, egiazko kontsolamendua aurkitzen du gizakiak bere atsekabe guztientzat. Joan Mari Lekuona

Jainkoari eskatzen diogu, jakinduria osoz eta Espirituak ematen duen ulermenaz jantzirik, Jainkoaren nahia zein den bete-betean **ezagut** dezazuela. Elizen arteko biblia

Baina ez dut gaia zehatz-mehatz **ezagutzerik** izan. Urtzi Urrutikoetxea

Denboren bilkuran dagoen jarraitasun hori agerpenetan soilik **ezagut** dezakegu enpirikoki. Ibon Uribarri

Pentsatzen dudalako soilik ez dut objekturen bat **ezagutzen**, baizik eta begiespen jakin bat pentsatze oro osatzen duen kontzientziaren batasunerako determinatuz soilik **ezagut** dezaket objekturen bat. Ibon Uribarri

Esperientziaren legeen arabera **ezagut** daitekeen objektua. Ibon Uribarri

Logika transzendentalean ikusi dugu beste gauzekiko elkarloturaren legea a priori **ezagut** dezakegula, zuzenki ematen zaigun adigaiaren edukia inoiz gainditu ezin dugun arren. Ibon Uribarri

3 (era burutua izenondo gisa)

Legea errespetatu nahi du, lege idatzia edo **ezagutua**, baina beste lege mota bat dago, bakoitzak barnean duena eta "goialde" batetik datorrena (daimon); hots, zer egin behar dugun esaten diguna. Askoren artean

Eta ezagutza beti objektu **ezagutuaren** antzekoa delarik, perfektua da eta arima ezagule eta **ezagutuaren** berdina. Imanol Unzurrunzaga

4 aitortu, onartu.

Filosofiak ezin du erlijioa definitu gizartean duen eragina **ezagutu** gabe. Askoren artean

Ezagutzen dut zure eginahala, zure sugar goria; eta harako Jainko hark geure egitateengatik jujatuko bagintu, egunen batean hiri handi bateko santu begirale izanen zinateke,Horrela, ondasun hori ere utzita, Jaunaren ahalmena **ezagutu** eta Gurutziltzatuaren besoetara bere burua biluzik emateko. Jon Muñoz

Niri eman dizkidazun irakatsiak eman dizkiet nik, eta hauek onartu egin dituzte, eta benetan sinetsi dute zuregandik natorrela eta **ezagutu** zuk bidali nauzula. Elizen arteko biblia

Jaunaren bideari buruz ongi eskolatua zegoen; gartsuki hitz egiten zuen eta Jesusi zegokiona zehazki irakasten, Joanena beste bataiorik **ezagutu** ez arren. Elizen arteko biblia

Ezagutzen ez nituen pertsonaia famatu batzuen hilobi bitxiak bisitatu behar izan genituen oraindik ere, eta, azkenean, egiptoarren etorbidera iritsi ginen. Ramon Saizarbitoria

Anaia guztiek Ebanjelioa bete-betean gordetzera behartuak daudela jakin eta **ezagut** dezaten, hau nahi dut Erregelaren hasieran eta bukaeran idatzita utzi: "Anaiak egon bitez Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelioa betetzera behartuak". Askoren artean

Adimena emango diet ni Jauna naizela **ezagut** dezaten. Elizen arteko biblia

Emeki-emeki lortu behar dugu Euskal Herriko partaide profesional, administratibo eta besteek, ofizialki ez bada ere, laneko partaide gisa **ezagut** gaitzaten. Berria - Harian

Ezagut dezan munduak zure nagusitza, jentil-herriek zure garaipena. Elizen arteko biblia

Zu zaitu jabe, zuzen da **ezagut** dezazun. Jon Muñoz

5 ***ezin ezagutuzko*** ezin ezagut daitekeena.

Ez ninduen ukitzen, bere izaera haragizkoa ez duenez, pisurik gabea, **ezin ezagutuzkoa** baizik. Josu Zabaleta

Beharrak, tirriak, zorteak, hots biziaren **ezin ezagutuzko** misterioak, hemen ezarri nau eta, abiatuan abiatu, segitzen dut hasi bidea. Piarres Aintziart

---

ezagutubako *izond* ezagutzen de dena.

Gainerat, naizeneko hizkuntza hein berean sozialki **ezagutubakoa** izanik, haiek onartzea gauzak daudenetan uztea dateke, ez bere tokian. Jose Angel Irigaray

---

ezagutumin *iz* ezagutzeko mina.

Ezagutuminak eraman ninduen *Burger's daughter* irakurtzera orain urte asko, eta kasualitateak jarri dit eskuartean liburu hau, jatorrizko bertsioan *Writing and Being* izenekoa, baina gaztelaniazko edizioan beste bi saio ere badituena, bata *The Empire of Joseph Roth*, eta bestea *Writing and Being: Nobel Prize Lecture* titulukoa, 1991n

Suedian Nobel Saria jaso zuenean emaniko diskurtsua alegia. Berria - Kultura

---

ezagutza *iz* 1 ezaguera.

Oro harrezko esperientzia baten ahalgarritasuna eta bere objektuen **ezagutza** hiru **ezagutza**-iturburu subjektiboetan funtsatzen dira: sentsua, irudimena eta apertzepzioa. Ibon Uribarri

2 *ezagutza egin* ezagutu.

Amsterdamen izan zen, ezinbertzean, emazteki baten **ezagutza egin** nuen lehen aldia. Joan Mari Irigoien

Pertsona onen **ezagutza eginez** goi mailako auzoetan inude lana egin ahal izango nuen itxaropena ere eman zidaten. Joxan Elosegi

Denbora gutxi nuela -kontua ekarri eta ordaintzen zuen bitartekoa- haren **ezagutza egiteko**, eta, dudarik gabe, hain nengoen pentsamendu horiek hartuta, ezen ez bainuen ulertu zerbitzariak esaten zidana. Ramon Saizarbitoria

Jonen **ezagutza egin** nuen Arbonako rock kontzertu baten karietara, amodioa egin genuen, ez zen hain gaizki pasatu. Itxaro Borda

Horietako baten **ezagutza egin** dut, lagun ere egin naiz: ile urdineko gizon txikia da, sudur kakoa, berak ere ikurrik gabeko hiruki gorria darama eta, bizpahiru zifrakoa izan ez arren, betiere itxurosoa den milako zenbakia. Urtzi Urrutikoetxea

Guhaurek ere non-nahitik jin apezen **ezagutza egiten** genuen. Marzel Etxehandi

Soldadogo denboran Marcel-Auguste Leonis-en **ezagutza egiten** du San Andreseko trinketean eta hola abiatzen da bikote xarmant bat. Michel Oronoz

Emeki-emeki mundu berri haren **ezagutza egin** nuen. Marzel Etxehandi

Bigarren gauaz geroztik hasi ziren saioak, elkarren **ezagutza egin** eta berehala. Felipe Juaristi

Artean ontziko gizonen **ezagutza eginez** nindoan eta, ohartua nintzen; haien ahoek arinago askatzen zituzten ziriak egiak baino. Edorta Jimenez

Funtsean Mariaren **ezagutza egin** nuelarik, seinale bat izaten ahal zatekeela erran nezake gaur. Piarres Aintziart

Gomita hortaz baliatu da herritar multxo bat tokien **ezagutza egiteko**. Herria

Udako opor ezin bururatuetan irakurri liburuak dizkidate ingurumen soziologiko ezberdinen **ezagutza egiteko** gustua ekarri. Berria - Kultura

Emeki-emeki mundu berri haren **ezagutza egin** nuen. Marzel Etxehandi

---

ezagutzabide *iz* ezagutzeko bidea.

Irudi berri horren arabera, zientzia ez da jada -ikuspegi razionalista tradizional batek ulertzen duen moduan- **ezagutzabide** epistemologikoki pribilegiatua izango, prozesu sozial, historiko eta kontingenteen emaitza baino, beste edozein agerpen kultural legez. Askoren artean

Hor dituzte, eskolak berak emanik, paradak: batean mintzaira ikasaldiak direla, bestean tokien **ezagutzabideak**, edo kultura formakuntza zabalago batenak, zenbat ez dira, haur haurretik hasirik, Inglaterran, Alemanian edo Italian gaindika ibiliak. Herria

---

ezagutzaile 1 *izond/iz* ezagutzen duena.

Ez gara subjektu **ezagutzaile** hutsak ("aingeruburu hegaldun soingabe"), zintzilika dugula gorputz arrotz bat, gorputz biziak baizik. Askoren artean

Estetika transzendentalaren arabera espazioa eta denbora ez dira objektu absolutuak, ezta berbaitango gauzen arteko harremanak ere, baizik gure formak, hau da, subjektu **ezagutzailea** den gizakiaren formak. Ibon Uribarri

Gizakien indar **ezagutzaile** enpirikoak halabeharrez adimen bat barnebiltzen du. Ibon Uribarri

Hartueman honen determinazio zuzena honetan funtsatzen da: ea zein indar **ezagutzaileri** egokitzen zaizkion subjektiboki, sentimenari ala adimenari. Ibon Uribarri

Zientziapraktika erreala bere osotasunean ez da praktika **ezagutzaileetara** murrizten. Askoren artean

Teologia aristotelikoa estilo klasikoko **ezagutzaileen** iseken aurka prestatua zegoen. Iñaki Mendiguren

Ezagutza "egiten" duena, edo ezagutzaren araua, hots, "egia" zer den oinarritzen duena, **ezagutzailearen** buruan edo subjektuaren baitan dagoela, zioen Kantek. Joxe Azurmendi

Lantzeko eremu oso zabal bat zegoen, eta ni, informatiko eta gaiaren zuzeneko **ezagutzaile** moduan, horretan sartu nintzen. Berria - Euskal Herria

Liburu hori jada, dio P. Ribas Unamuno-ren **ezagutzaile** minak, anbiguitatez josia dago. Joxe Azurmendi

Mendiko gizarte horren **ezagutzaile** aparta. Patziku Perurena

Idazle handi bati eta latinaren eta garaiko literatura-arauen **ezagutzaile** on bati dagokion trebetasunez, Zelanoko Tomasek biografia bizi eta aberatsa eratu du. Askoren artean

Ez babesle gisa duzun zure kargu bikainaren bidez, baizik maitale eta **ezagutzaile** argitu batek haiekin duen harreman estuagoa dela eta. Ibon Uribarri

Halako egien zaindari eta **ezagutzaile** bakartzat har ditzaten nahiko bailukete. Ibon Uribarri

2 (hitz elkartuetan)

Oso iritzi onean zeukan Cunningham jauna nortasun-**ezagutzaile** eta aurpegi-igarle gisa. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezagutzaileri egokitzen (3); **indar ezagutzaile** (6); **indar ezagutzailearekin** (3); **indar ezagutzailearen** (3); **indar ezagutzaileri** (4); **indar ezagutzaileri egokitzen** (3); **zein indar ezagutzaileri** (4)

---

ezagutze 1 *iz* gogoan zerbaiten berri izan edo zerbaiten ideia edukitzea; norbaiten edo zerbaiten berri jakitea.

Ezagutze hau Panofskyk pre-ikonografiko deitzen duena da. Josu Zabaleta

Eboluzio horretan, badira zenbait puntu finko-finko, uharte koxkor batzuk, **ezagutze** espezifikoko guneek osatuak. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Halako eragiketen kargu dagoen multzo bateko geneak zelulen **ezagutze**-jokoek katigatzen dituzte elkarrekin, eta horrenbestez haien emaitzak estu lotzen. Juan Garzia

Ba ote zientzia-ikerkuntzan mugaren bat, ez **ezagutze**-ahalmenak, baizik eta ezagutzeko interesak ezarria? Juan Garzia

Molekulen **ezagutze**-kontu hori, hasiera-hasieran, zerari zegokion soilik: entzimak eta substratuak edo antigenoak eta antigorputzak elkarrekin nolabaiteko eragin-trukea izateari. Juan Garzia

Oinarriko elementua, zelularen kimikan zuzenean inplikaturik dagoena, eremu proteiko jakin batek bere baitan daukan **ezagutze**-gunea da. Juan Garzia

Ezagutze-gune hori gene segmentu batek determinatzen du, segmentu kodetzaile edo *exon* deritzonak, eta hari dagokio inertzia hori. Juan Garzia

Karga elektrostatikoak determinatzen baititu beste molekulekiko **ezagutze**- eta eragite-gaitasunak. Juan Garzia

Bidaietako elkar-**ezagutze** xalo horietako bat. Joxe Austin Arrieta

---

ezagutzear *adlag* ezagutzeko zorian.

Noiz edo noiz agurtzen zintuen nirekin zihoan jaun haietakoren batek; zuk eskerrak eman eta begiak nigana jasotzen zenituen: baina zure begirada urruntasun adeitsukoa zen, **ezagutzear** dagoen baina ezagutzera inoiz iristen ez denarena, urruna, ikaragarri urruna. Eduardo Matauko

ezagutzearren *adlag* ezagutzeko.

Kanpotarrak norgehiagoka zebiltzan plazako gizon berria **ezagutzearren**. Joanes Urkixo

Ez dut inor ezagutzen inguru hauetan Piramideak **ezagutzearren** soilik basamortua zehartzeko prest dagoenik. Xabier Aranburu

Presaka ertzaintzaren komisariara joatea erabaki banuen, sentimendu ilun horren zioak **ezagutzearren** izan zen eta ez komisarioa zain nuelako. Joxean Agirre

Esakunea analizatzen baldin badugu, bere edukia **ezagutzearren**, hots, ea eta nola determinatzen duen horren bitartez niak bere izatea espazioan edo denboran, [...]. Ibon Uribarri

Elkar **ezagutzearren**, jakin zezala nolako pertsona nintzen, nondik heldu nintzen, nire gustu eta zaletasunak. Fernando Rey

Ezkondu aurretik luzaroan ezkongai gisa ibiltzearen aldekoa zen, elkar hobeto **ezagutzearren**. Luis Elberdin

Horren bitartez agerpenak objektuen adigaien menpean enpirikoki **ezagutzearren**. Ibon Uribarri

---

ezagutzeke *adlag* ezagutu gabe.

Oraindik **ezagutzeke** dauden baldintzetan negoziatzea. Berria - Euskal Herria

Haren bizimoldeak argi erakusten zuen etsipenez eta liskarrez beteriko mundu honetako zenbait jende gai dela babesik, dirurik, lagunik, kezkarik gabe iraunbizitzeko, premia gorria eta lazeria **ezagutzeke**. Patxi Zubizarreta

Kasu bakoitzean, horra bat-batean hautematen ordura arte **ezagutzeke** zegoen analogia bat. Juan Garzia

Inoiz letargia larriak lozorro sakon eta luzean sartzen du, begiak eta burua jausirik, ez abotsik entzun, ez bizira deituz inguratzen duen aurpegirik **ezagutzeke**, matrailak eta begitartea malkoztaturik. Xabier Amuriza

Jarduera horretan bi dira osagai nagusiak: subjektu ezagutzailea eta **ezagutzeke** emana dagoen mundua (alegia, objektua). Askoren artean

---

ezain **1** *izond* itsusia; moralki itsusia.

Zorua gorri, adreiluzkoa agian, higatua, dexente hondatua; eta gaurkoan hondakinez eta puska **ezainez** zikindua. Txillardegi

Ez utzi Danimarkako errege-ohea izan dadin lizunkeriaren eta intzestu **ezainaren** etzalekua. Juan Garzia

Lotsaria zen hori, laidogarri **ezaina**. Juan Garzia

Horiek guztiak itxaropen **ezainak** zirela, hurkoaren zorigaitzez doilorki baliatzea bailitzateke. Juan Garzia

Mendeka ezak haren hilketa doilor-**ezaina**. Juan Garzia

Ia ordu erdi igarota, hesola bat ematen zuen gona gorri motzeko neska bat agertu zitzaigun eta aberats-berri kutsuko dekorazio dotore-uste **ezaineko** bulego bateraino eraman gintuen. Anjel Lertxundi

2 (adizlagun gisa)

Susannak arbuiatu egin zuen Marchín, eta hura **ezain** ere **ezain** mendekatu zitzaion, gòi bati saldurik hestebeteen errezeta. Juan Garzia

---

ezainkeria *iz* ezaina denaren nolakotasun gaitzesgarria.

Kontu hura, ez bainuen duda-izpirik egia zela, aldi berean iruditzen zitzaidan **ezainkeria** latz eta lilurabide eder: ezain, hiltzeko modu krudel harengatik, eta miragarri natural bat halako hutsalkeria baterako erabiltzeagatik; liluragarri, berriz, halako trikimailu bikainaren asmatzaile mitikoak horrenbestez erakusten zuen buruargitasun eta ausardia bipilarengatik. Juan Garzia

---

ezaldakor *izond* ez aldatzeko joera duena.

Gorde nazazu izan nintzen hura berriro izatetik, **ezaldakor**. Berria - Kultura

---

ezalderdikari *izond* alderdikoia ez dena.

Badakit ordea kanon sainduen arauen arabera eta ez bakoitza bere aburu bereziari jarraikiz behar dela ibili daukaten jende jakintsu, **ezalderdikari** eta aditu anitz badagoela Piarres Xarriton

---

ezaldi *iz* gabezia aldia.

Kontuan hartuta botila erdi whisky edana nintzela lehenago eta 206 eguneko **ezaldia**, ez nuen barregarri gelditu nahi. Aingeru Epaltza

Jaungoiko nirea!, oraintxe bai zeu nahastu behar zaitudala, barkatu, baina ez zait zirrimarrarik egiterik gustatzen, eta **ezaldietan** debekatuta dago papera botatzea. Josu Zabaleta

---

ezantsiatu, ezantzia(tu), ezantsiatzen da *ad* ez kezkatu. lasaitu.

Eta Axularrek ihardetsi dio adiskideari: -Tema baten gainean, garaikarrean, laster egiten duenak, ez du xedera eta marrara hurbildu hurran denean **ezantsiatu** behar eta baratu. Anjel Lertxundi

Hala bada nik ere orain xedera, bizitzearen bazterrera eta adinaren finera hurbildu naizenean, ez dut gelditu behar eta ez **ezantsiatu**. Anjel Lertxundi

---

ezantza *iz ipar* gasolina.

Faxistek, bonbardaketa egin ondoan, gasolina edo **ezantzaz** busti zuten hiria eta su eman. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kamioia ezin izan zen gelditu Polizia kontrol batean eta, 18.000 litro **ezantza** zeramatzala, suak dozena bat ibilgailu harrapatu zituen. Berria - Mundua

Autoek **ezantza** gehiago erreko dutela. Herria

Azken denbora hotan **ezantza** bizpahiru aldiz kariotu da, aldian guti bada guti... Herria

Bassoran, jendea kexaturik altxatu da podorearen kontra, elektrika eta **ezantza** xuhurturik, gehiago dena petrolio lurrak diren herri hortan are nekeago baita holako xuhurtzea onartzeko. Herria

Trafiko horretan dihardutenek **ezantza** nahiko merke erosten dute Iranen eta nabarmen garestiago saltzen Pakistanen.Azkenetatik bat iragan otsailaren 18an gertatu zen: sufre eta **ezantzaz** beteta zegoen tren bat lehertu zen Neishadur hirian, eta 289 lagun hil ziren. Berria - Mundua

Dio, eta egia da segur, petrola kariotzearekin, **ezantza** furnitzale handien irabaziak direla ere. Herria

Denbora batez, euroa etzelarik oraino sartua, bazterrak arrangura ziren zer eginen zen **ezantza** pinta bost libera baino gehiagotan izanez! Herria

Taberna bidearen aldamenean kokatua zen, **ezantza** saltegia eta drive-in jatetxea zetxizkiola. Itxaro Borda

Egun osoko **ezantza** usaina apaldu eta zuhaitz erdi biluzien aldameneko orbel usteltzen hasiarena nagusitzen zen gau giro oraino ez hotzegian. Xabier Montoia

---

ezantzategi *iz* gasolindegia.

Etxe hori, berantago, gasolindegi edo **ezantzategi** bilakatu da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ondarrean **ezantzategiko** ostatuaren ikusteak, hantxe eskuin, hartzen ari ninduen beldurra kendu dit. Piarres Aintziart

---

ezargarri *izond* ezar daitekeena.

Europako Batzordeak oinarri **ezargarria** bateratzea proposatu zien finantza ministroei, eta proposamenak eztabaida bizia piztu zuen ministroen artean. Berria - Ekonomia

Elkarteen Zergaren oinarri **ezargarriari** eginiko kenkariak (opor fiskalak) legez kanpoko estatu laguntzak dira. Berria - Ekonomia

Didier Reynders Belgikako Finantza ministroak nahiago du sozietate zergaren oinarri **ezargarriari** gutxieneko eta gehienezko tasa bat ezartzea. Berria - Ekonomia

---

ezargarritasun *iz* ezargarria denaren nolakotasuna.

Muga prosodikoek, dena dela, bilakabide fonologikoen **ezargarritasuna** murriztu dezakete, baina ez dute erabat debekatzen. Lourdes Oñederra

---

ezarian 1 *adlag* ia aritu gabe bezala, ia ohartu gabe.

-Geratu hemen, mesedez -esan eta **ezarian** alde egin zuen. Lopez de Arana

Ura baita, frexko beraz, eta ia nola ez dakizula, oharkabean, **ezarian**, hortxe azaltzen den prezipitazioa. Pello Zabala

2 *ezari-ezarian* adlag

Ezari-ezarian, antolamendu plan oso bat taxutu zuen. Karlos Zabala

Ezari-ezarian, jendea agertzen hasi zen plazara. Iñaki Iñurrieta

Ezari-ezarian, antolamendu plan oso bat taxutu zuen. Karlos Zabala

Ezari-ezarian erle artera inguratuz joan gara, baina jadanik ez naiz izu; apaizaren lasaitasunak babesten nau, hain istorio zaharrean kontzentraturik orainaren arriskuekiko axolagabe egoten erakutsi nahi balit bezala. Pako Aristi

Judas **ezari-ezarian** aurrera egiten ari zela eta haren garaipenak geroz eta gehiago zirela ikusirik, Filipok Ptolomeori -Koele-Siria eta Feniziako gudalburuari- idatzi zion erregearen interesak defendatzen laguntzera etor zekion. Elizen arteko biblia

Begi-keinu bat egin zuen **ezari-ezarian** eta soa tinko finkatu zuen haren begi beltzetan. Edorta Jimenez

Baina **ezari ezarian** jaisten hasiko da hurrengo egunean. Joseba Sarrionandia

Oteizaren itzala **ezari-ezarian** ari zen luzatzen pisuan zehar. Iñaki Iñurrieta

Isil-isilik, **ezari-ezarian**, atoiontzi baten argiak iluntasun ezkoan zehar lerratzen ziren. Lopez de Arana

Ezari-ezarian erle artera inguratuz joan gara, baina jadanik ez naiz izu; apaizaren lasaitasunak babesten nau, hain istorio zaharrean kontzentraturik orainaren arriskuekiko axolagabe egoten erakutsi nahi balit bezala. Pako Aristi

Nire gogoak portretako ur hotz sakonera igorri zituen polizia eta bulegaria, eta hartan **ezari-ezarian** murgilarazten, **ezari-ezarian** murgilarazten. Aingeru Epaltza

Hemezortzi urteko gerlaren ondoan, hiria **ezari-ezarian** gailendua zitzaion Garrüzeri, ez bakarrik Amikuzen, Nafarroa osoan baizik, Albreteko etxea nagusi zen aldean bederen. Aingeru Epaltza

Hotzaren etorrerarekin batera, ordea, ardiak eta artzainak agertuz joaten dira **ezari ezarian**, beren txakurrekin. Jokin Muñoz

Ega ibarretik, eta atzerago Urederraren arrotik, Bargagorri eta Lazkuako harkaitzen atzetik, ilunabarraren ubela zetorkidan gainera **ezari-ezarian**. Txillardegi

3 *ezarian-ezarian* adlag

Ezarian-ezarian, Florent beharbada ez zela gizon gaiztoa pentsatzera iritsi zen, inori esan ez bazion ere; begirunea zuen haren heziketarekiko, eta, horrekin nahasirik, gero eta jakin-min biziagoa hurbilagotik ikusteko, haren bizitzan barneratzeko. Karlos Zabala

Ezarian-ezarian, antisemitismoaren gaitza Frantzia guztira zabaltzen ari da. Iñigo Aranbarri

Ohartuta edo ohartu gabe, aurpegian gero eta aitaren antz handiagoa duela jabetzen den semeak aitaren silueta hartzen du **ezarian-ezarian**, halako traizio bat bezala bizi du patu saihetsezin hori, etsita murgiltzen da aitak utzitako uberan. Harkaitz Cano

Baina **ezarian-ezarian** obra hau ustegabeko tamainia hartuz joan zen. Berria - Harian

Urte askotan harri gogor bat mailuarekin jo eta **ezarian-ezarian** zizelkatzen pasa ondoren, orain bat-batean eguzki berritan haize leun baten zizpuruarekin irekitzen den lorea bihurtu zitzaidan musika. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baina ezarian** (3); **eta ezari** (6); **eta ezari ezarian** (5); **eta ezarian** (8); **eta ezarian ezarian** (4); **ezari ezarian** (61); **ezarian eta** (3); **ezarian ezarian** (28)

---

ezarketa *iz* 1 ezartzea.

Hitz pare bat oraindik hitz akustikoen **ezarketaz**. Lourdes Oñederra

Argi dago formaldatzeen **ezarketa** ordenatu behar duguna. Itziar Laka

2 (hitz elkartuetan)

Ehun mila florineko diru-**ezarketa** bat lortu zuen, florinotako gutxi batzuk esperimentutan eta gainerakoak tripafestatan gastatu, eta halako batean berak experimentum crucis esaten diona herriko gizon printzipalen aurrean egitera gonbidatu zuten; bi mila libra hareatatik, ordea, ez zuen lortu bi printza urre baino ateratzerik. Juan Garzia

Batak ez du bestea ukatzen, ezta arbuiatzen ere, batez ere bataren eta bestearen **ezarketa** arloak oso desberdinak direlako eta elkarrengandik bereiz daudelako erabat. Lourdes Oñederra

3 *gain-ezarketa*

Irakurria omen zuen, ordurako oroitzen ez zen aldizkariren batean, aloxanak, mukosak ukitzean, koloreztapen gorri ezinago iraunkorra ematen diela, ez baita **gain-ezarketa** bat, berniz bat alegia, ezpain-margoa den bezala, baizik eta tindu peto-peto bat, artileari eta kotoiari ematen zaien moduan. Juan Garzia

Gizaldi batzuetan edertasuna apaindurarekin, **gain-ezarketarekin**, jantzi-mantziarekin identifikatu da. Juan Garzia

---

ezarle 1 *iz/izond* ezartzen duena.

Armen indarra eta indarraren boterea da "la gran cirugía histórica": nazioen, ordena sozialaren, zibilizazio iraunkorren **ezarlea** hori da. Joxe Azurmendi

Platon da Mendebalde osoarentzat filosofian, moralean, erlijioan, gure kultura komunean, oinarrizko bilakatu den gizakiaren ikusmolde dualistaren **ezarle** eta finkatzaile filosofikoa. Askoren artean

Guk hemen aipatu ditugun prozedura arau-**ezarle** asko, ordea, gaizki ikusiak daude literaturan. Iñaki Arranz

Esan zezakeen, orobat, berak ez dituela poesia eta prosa bata bestetik bereizten, eta "metaforismo" hitzaren bidez hartu nahi izan diela mendeku, metaforikoki esanda, muga-**ezarle** eta mugazain guztiei. Joxerra Garzia

Eta hara non adar-**ezarle** jelostua tiroka abiatua -Potzoloren eri zuzena pistola bateko kanoi bilakatu zen-. Aingeru Epaltza

2 (dirua edo kidekoak)

EAJ-EAren zerrenda garaile Kutxako **ezarleen** bozetan. Berria - Ekonomia

Horixe da hilaren 23an egingo den kutxaren **ezarleen** batzar nagusian ezker abertzaleko kideek proposatuko dutena. Berria - Euskal Herria

Hiru zerrenda lehian, Vitaleko **ezarleen** ordezkarien hautaketan. Berria - Ekonomia

Jada 104.000 likidazio proposamen egin eta bidali dizkiete **ezarleei**, eta %96k azaldu dute euren adostasuna. Berria - Ekonomia

Ildo horretatik, aurrezki kutxak gaur egingo ditu 43 **ezarleak** aukeratzeko hauteskundeak. Berria - Ekonomia

Ezarle edo bezeroei dagozkien bost ordezkariak ekainaren 4an aukeratuko dituzte. Berria - Ekonomia

Egun horretan bezeroen ordezkariei, **ezarleei**, dagozkien 43 batzarkideak aukeratuko dituzte. Berria - Ekonomia

Koiunturazko aldiotan gertatu ohi diren aurrezki pribatu gehiegizkoaren eta interes-tasen lasaitzearen ondorioz, diru-**ezarleak** beste lekuen bila hasi ziren beren eragiketak egiteko. Koro Navarro

EAJk lortu du ordezkari gehien BBK-ko **ezarleen** ordezkariak aukeratzeko hauteskundeetan: sei Bilbon, eta 21 orotara. Berria - Ekonomia

---

ezarleku *iz* ezartzeko lekua; jarlekua.

Posizio hori nabarmentzekoa da: erakusten digu Hannonek ipar latitudeko hogeita bost graduan jarri zuela bere **ezarlekuen** muga, hau da, Kanariar irlak baino bizpahiru gradu hegoalderago. Iñaki Iñurrieta

Bertan, harresiaren babesean, kanoi-zulo bat eta harrizko **ezarlekua** zeuden. Agustin Otsoa

Baina kontuan hartuta Mirenek aspaldi zituela begiak jarrita Andoniren **ezarlekuan** ... zer pentsa ez dakit. Migel Angel Mintegi

---

ezarpen **1** *iz* ezartzea.

Obuluen kasuan jakingarri da, horiek klinika pribatuen esku daudela ia guztiz, sare publikoko oso ospitale gutxitan egiten baita emakumezko haziaren **ezarpena**. Berria - Gaiak

Katuetan eta tximinoetan posible da **ezarpena** aldatzea hipotalamoko sodio- edo kaltzio-kontzentrazioa handituz. Irene Aldasoro

Haranetako nekazaritza uztearekin eta *insignis* pinuaren **ezarpenarekin** paisaia erabat aldatu da ekosistemaren kalterako. Berria - Euskal Herria

GAMESAK (%3,89) 3i inbertsio funtsari saldu dizkio parke eolikoen muntaketa, **ezarpen** eta mantenuaz arduratzen diren filial bi. Berria - Ekonomia

Akordioa lortuz gero, betiko bermatuko dute bake akordioaren **ezarpena**. Berria - Mundua

Eta **ezarpena** erabatekoa gertatuko da 1266ko Pariseko kapituluak Bonabenturarena baino lehenagoko legenda guztiak suntsitzeko agindua ematean. Askoren artean

Madrilek 1870ean izendatutako Diputazio "anti-foralaren" dimisio orokorra, eta ordezkoren baten **ezarpena** segurtatzea. Txillardegi

Erregela baten **ezarpena** testuinguru jakin batera mugatzeko gai izan behar dugu. Itziar Laka

Kalitate Legearen **ezarpena** bi urtez atzeratuko duela jakinarazi zuen atzo PSOEk. Berria - Euskal Herria

Lege horien **ezarpenagatik** irten ziren germaniar herriak egoera natural hartatik. Iñaki Iñurrieta

Araudiek Estatuko hiritar guztiek funts horren zama neurri berdinean eramateko modukoak izan behar dute, denek baitute zorraren **ezarpenaren** zama. Iñaki Iñurrieta

Erromatar Inperioaren historian, Pax Augusta-ren **ezarpenaren** lekuko izan zen belaunaldia aurkitzen dugu. Iñaki Mendiguren

Erakustea zientzia baten **ezarpena** eta, beharbada, bera formalizatua bihurtzea, ahalezkoa eta eraginkorra egin dela eraketa diskurtsibo baten baitan eta honen positibotasunaren aldaketetan. Xabier Arregi

Nekez espero zitekeen estatu konkistatuek hura atsegin izatea, Tsin She Huang-ti estatu unibertsalen **ezarpenen** historietan ezagun den figuraren -marka-gizon konkistatzailearen- ordezkari baitzen. Iñaki Mendiguren

Erorialdi berri honi bigarren susperraldi iraunkorrago batek jarraitzen dio, estatu unibertsalaren **ezarpenean** agertzen dena. Iñaki Mendiguren

Zikloei buruzko bere teoria zabalduaren arabera, ziklo ekonomikoek inbertsioa sustatzen duten asmakizun eta berrikuntzen **ezarpenarekin** dute zerikusia. Iñaki Heras

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Estatu unibertsal baten **ezarpen** arrakastatsua ikusteko. Iñaki Mendiguren

Talde menderatzaileen edo interes ekonomikoen **ezarpen** ideologikoak. Luis Elberdin

Erdialegiazko iraganaldi baten kanonizazio horrek zirrara txikia eragin zuen Tsin-go gobernari eta herriarengan, eta landu gabeko marka-estatu honen erakundeen bat-bateko **ezarpenak** arrangura bortitza sortu zuen. Iñaki Mendiguren

Errusiar agintepeko estatuetan, ordea, garbi zegoen errusiar boterearen zeharkako **ezarpena** ere higuingarria zela guztientzat, komunisten gutxiengo txiki batentzat izan ezik. Iñaki Mendiguren

Biztanleriak Helasko bizibideetan zertzen zuen presioak grekoen hedapenari indar lehergarria eman zion eta akuilatu egin zituen itsasoz bestaldean merkataritza-guneak jartzera, horrela mundu berri hau Magna Grezia bihurtu zutelarik landan nekazari-kolonizatzaile helenikoen **ezarpen** bizkor eta ugariaren bidez. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Auzitan daudenak beharrezko kapitalen bolumena nahiz finantzaketaren baldintzak izan (laguntza, kreditua, diru-**ezarpenak**, inbertsioak), garapen-bideko herrialdeetatik kanpo hartutako erabakien mende geratzen dira Ipar-Hego kapitalen fluxuak gidatzen dituzten parametroak. Koro Navarro

Antzina Erregeren esku **ezarpenaz** sendatzen zen gaitz bat. Xabier Olarra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zentro bakoitzaren egoera ezberdina da, batik bat ikasleen hizkuntzen ezagutza eta titulazioen **ezarpen** maila ezberdinak direla medio. Berria - Euskal Herria

Deiaren **ezarpen** kostua (12 euro zentimo inguru) eta lehenengo minutua osorik pagatzen jarraituko dute erabiltzaileek. Berria - Harian

Ingurumen eragina: Txikia. - **Ezarpen** kostuak: 5.962.000. Berria - Euskal Herria

Ezarpen edo hertsapen literatura ere deitu izan zaio: Houdini haietako bat bezala jokatuz, bere buruari alde guztietatik lokarriak eta kateak ezartzen dizkio Queneauk, eta, hala ere, libre geratzeko gauza dela erakusten du behin eta berriz Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
baten ezarpena (6); **bere ezarpena** (3); **ezarpen kostuak** (9); **ezarpena eta** (4)

---

ezarrarazi ezarraraz(i), ezarrarazten du *ad* ezartzera behartu.

Lerroan **ezarrarazi** zaituztete. Xabier Montoia

Presoak biluz gorrian **ezarrarazten** zituen eta hurbiletik ongi miatzen. Eneko Bidegain

Dardaraka **ezarrarazi** ditu motorren azantzak etxeetako hormak. Xabier Montoia

---

ezarri, ezar(ri), ezartzen **1** du *ad* ipini; era jakin batean, betekizun jakin baterako ipini. ik**jarri**.

Xarparik ez **ezarri**. Herria

Ohartu zen Jose aitak bere eskuineko eskua Efraimen buru gainean **ezarria** zuela, eta ez zion ongi iritzi. Elizen arteko biblia

Keretarrek eta peletarrek Salomon David erregearen mando gainean **ezarri** eta Gihonera eraman zuten. Elizen arteko biblia

Gaixoak kalera ateratzen zituen jendeak, eta ohe nahiz ohatiletan **ezartzen** zituzten, Pedro igarotzean beronen itzalak bederen bat edo beste uki zezan. Elizen arteko biblia

Jesus hilobian **ezarria**.

Gertatua egiaztatu ondoren, erregeak hesia **ezarri** zuen eta toki hura sakratutzat eman. Elizen arteko biblia

Muga batzu behar dira beraz **ezarri** bainan ez hertxiegiak. Herria

Neure papera harparen hari artean **ezarri** nuen, haren gutuna **ezarria** zen gisara, eta egongelara itzuli nintzen. Jon Muñoz

Ezar itzazue gutun honen kopiak toki guztietan eta utzi juduei beren ohiturei jarraitzen. Elizen arteko biblia

Beraz, Jaunak, zure profeta hauen guztien ahoan gezur-espiritua **ezarri** duenez, garbi dago, erabakia duela zure hondamena. Elizen arteko biblia

Horregatik **ezarri** ditu Jainkoak bi zorte: bata bere herriarentzat, bestea gainerako herri guztientzat. Elizen arteko biblia

Jerusalemen aurka borroka egin zuten herri guztiei zigor hau **ezarriko** die Jaunak: haragia usteldu egingo zaie oraindik bizirik daudela, begiak beren zuloetan ustelduko zaizkie, mihia aho barruan. Elizen arteko biblia

Ottaviano epailea izan zen begiak ateratzeko zigorra **ezarri** zuena eta Otton zaldunak bete zuen udaltzainen eskuz. Askoren artean

Printzeak proportzio bat **ezartzen** du -metal gisa- zilar-kantitate baten eta diru gisako kantitate horrexen artean. Iñaki Iñurrieta

Estatu bakoitzeko txanponek, gainera, balio erlatiboa dute, beste herrialde batzuetako txanponekin konparatzen diren aldetik; balio erlatibo horixe **ezartzen** du kanbioak. Iñaki Iñurrieta

Konkistatzaile latinoek (gurutzatuek) Romania inperioa izenez Grezian **ezarri** zuten erreinua. Askoren artean

Hamarrenak ordaintzeak ez zuen zerikusirik monarkia **ezartzearekin**. Iñaki Iñurrieta

Karlomagnok hamarrenak **ezarri** zituen, beste ondasun-mota bat. Iñaki Iñurrieta

Legeak diru-kopuru bat **ezartzen** zuen jarauntsiaz gabetzen zien emakumeei emateko. Iñaki Iñurrieta

Lege politikoa, Estatuan halako ondorengotza-ordena jakin bat **ezarri** duelarik, bera sortu duen gorputz politikoaren suntsitzaile bihurtzen denean, beste lege politiko batek aldatu egin dezake ordena hori. Iñaki Iñurrieta

Chomskyren bi liburu horiek lan bakarra osatzen dute, eta bertan aurkeztutako hizkuntz teoria funtsezkoa gertatu da neurozientzian, filosofian eta psikologian, eta hizkuntzalaritza zientzia kognitibotzat hartzeko oinarriak **ezarri** ditu. Itziar Laka

Haurrari Ikabod **ezarri** zion izena amak, hau da, "Ospegabe", esanez: "Eraman egin dute Israelen ospea". Elizen arteko biblia

Netaniasen seme Ismaelek Babiloniako erregeak eskualdeko gobernari **ezarri** zuen Ahikamen seme Gedalias hil zuelako. Elizen arteko biblia

Ondoren, erregeak Joiadaren seme Benaias egin zuen gudarostearen buruzagi Joaben ordez, eta Tzadok apaiza **ezarri** zuen Abiatarren tokian. Elizen arteko biblia

Bi auzo estatuetako legeriak ez dira berdinak eta nork bere zuzenaren eskatzeko duda muda, ikerketa eta diru anitz **ezarri** behar izaiten ditu. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Sharon-ek zion bortizki zuela ukaldi hori ordainduko, eta judu armadak berriz **ezarri** du Betleme bere meneko. Herria

Feudoen oinordekotzak eta azpifeudoak orokorki **ezartzeak** itzali egin zuten gobernu politikoa, eta gobernu feudala ekarri zuten. Iñaki Iñurrieta

Biharamunean, gurasoen mutur beltzek eta gorputzeko izerdi zuriak hartaratua, ez zela bigarrenik izanen zin egin nuen, esku ahurra Millerren Cancer tropikoa-ren azalaren gainean solemneki **ezarrita**. Aingeru Epaltza

Bizi ziren jendeak biluzgorri **ezarriak** gelditu ziren larrua berinakiz urratua eta gorputzak ezin aipatuzko maneran, Haiti hortan, huna azken ordu huntan manifestaldi gaitza izan dela berriki **ezarri** gobernuaren kontra, beren gisan Frantziako Chirac tiarrak eta sozialistak ere doi bat xixtatzen ari direlarik. Herria

Ezenatokia lau metroz handituko dute, eta seguritate muntadura guziak artoski **ezarririk** 600 ikusle baizik ez ditu jasanen, gaur egun 800 sartzen direlarik. Herria

Hor dira xarmanki **ezarriak** Txillida zizelkari ospetsuaren obra asko eta asko. Herria

Estebe Eiherabidek horiek oro idatziz **ezarriko** ditu. Herria

Ez da haatik aise irakurtzen eta konprenitzen ahal zer den idatzia, latinez **ezarria** baita eta hizkiak arrunt histuak baitira. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

bat ezar (13); **ezar daiteke** (21); **ezar dezake** (10); **zigorra ezar** (14)

agerian ezarri (15); **agindua ezarri** (42); **agindua ezarri zuen** (9); **agindua ezarri zuten** (12); **aitzinean ezarri** (8); **alerta egoera ezarri** (15); **artean ezarri** (16); **atxiloketa ezarri** (10); **aurrean ezarri** (14); **auzitan ezarri** (8); **baitan ezarri** (8); **baldintza ezarri** (12); **baldintzak ezarri** (13); **barruko atxiloketa ezarri** (9); **bat ezarri** (220); **bat ezarri behar** (10); **bat ezarri du** (17); **bat ezarri dute** (9); **bat ezarri nahi** (19); **bat ezarri zuen** (36); **bat ezarri zuten** (15); **batean ezarri** (40); **baten gainean ezarri** (11); **batzuk ezarri** (30); **berak ezarri** (18); **berean ezarri** (8); **bermea ezarri** (30); **bermea ezarri zion** (11); **berri bat ezarri** (13); **berria ezarri** (33); **berria ezarri zuen** (9); **berriak ezarri** (19); **berriro ezarri** (8); **berriz ezarri** (9); **bertan ezarri** (12); **bidean ezarri** (25); **bizkar ezarri** (10); **buru ezarri** (14); **burua non ezarri** (8); **buruan ezarri** (21); **buruan ezarri ondoren** (9); **buruari ezarri** (14); **da ezarri** (10); **debekua ezarri** (21); **demokrazia ezarri** (13); **egoera ezarri** (67); **egoera ezarri du** (9); **egoera ezarri dute** (15); **egoera ezarri zuen** (20); **egoera ezarri zuten** (11); **erdian ezarri** (10); **ere ezarri** (38); **eredua ezarri** (8); **erritmoa ezarri** (9); **esku ezarri** (9); **eskua buruan ezarri** (8); **eskua ezarri** (10); **eskuak ezarri** (12); **espetxe zigorra ezarri** (99); **eta ezarri** (46); **etxeratze agindua ezarri** (20); **euroko bermea ezarri** (21); **euroko isuna ezarri** (33); **ez ezarri** (12)

ezarri ahal (46); **ezarri ahal izango** (10); **ezarri ahal izateko** (21); **ezarri ahalko** (10); **ezarri arren** (12); **ezarri arte** (10); **ezarri aurreko** (10); **ezarri aurretik** (12); **ezarri baino** (16); **ezarri baino lehen** (8); **ezarri baitzuen** (11); **ezarri behar** (204); **ezarri behar da** (16); **ezarri behar dela** (12); **ezarri behar den** (9); **ezarri behar dira** (21); **ezarri behar izan** (8); **ezarri beharko** (58); **ezarri beharra** (16); **ezarri beharreko** (16); **ezarri da** (24); **ezarri den** (26); **ezarri die** (39); **ezarri diete** (22); **ezarri dio** (110); **ezarri dio epaileak** (10); **ezarri dion** (15); **ezarri diote** (106); **ezarri dioten** (14); **ezarri dira** (18); **ezarri diren** (15); **ezarri ditu** (96); **ezarri dituela** (10); **ezarri dituen** (18); **ezarri ditugu** (8); **ezarri ditut** (9); **ezarri dituzte** (67); **ezarri dituzten** (24); **ezarri dizkiete** (11); **ezarri dizkio** (13); **ezarri dizkiote** (10); **ezarri du** (171); **ezarri duela** (16); **ezarri duen** (25); **ezarri dugu** (16); **ezarri dut** (11); **ezarri dute** (137); **ezarri dutela** (10); **ezarri duten** (23); **ezarri duzue** (8); **ezarri ere** (14); **ezarri eta** (175); **ezarri ez** (20); **ezarri gabe** (32); **ezarri izan** (22); **ezarri izana** (14); **ezarri nahi** (265); **ezarri nahi du** (40); **ezarri nahi duela** (10); **ezarri nahi duen** (15); **ezarri nahi dute** (17); **ezarri nahi duten** (13); **ezarri nahi izan** (16); **ezarri nahi zuen** (12); **ezarri nahian** (8); **ezarri nahiz** (11); **ezarri ninduen** (8); **ezarri ninduten** (8); **ezarri nion** (17); **ezarri nituen** (11); **ezarri nuen** (17); **ezarri ohi** (14); **ezarri ondoan** (12); **ezarri ondoren** (48); **ezarri zen** (84); **ezarri zenean** (13); **ezarri zenetik** (17); **ezarri zidan** (13); **ezarri zien** (59); **ezarri zien atzo** (9); **ezarri zieten** (55); **ezarri zion** (232); **ezarri zion atzo** (25); **ezarri ziotela** (8); **ezarri zioten** (237); **ezarri zioten atzo** (15); **ezarri ziren** (61); **ezarri zituen** (160); **ezarri zituzten** (92); **ezarri zitzaion** (10); **ezarri zizkien** (13); **ezarri zizkieten** (16); **ezarri zizkion** (39); **ezarri zizkioten** (17); **ezarri zuela** (18); **ezarri zuen** (467); **ezarri zuen atzo** (26); **ezarri zuen bere** (11); **ezarri zuen eta** (14); **ezarri zuen kanpalekua** (9); **ezarri zuena** (12); **ezarri zuten** (211); **ezarri zuten atzo** (10); **ezarri zuten kanpalekua** (17); **ezarri zutenean** (9)

gain ezarri (20); **gainean ezarri** (99); **gainean ezarri eta** (10); **gainean ezarri zituen** (9); **gainean ezarri zuen** (20); **gehiago ezarri** (10); **gerra legea ezarri** (10); **gisa ezarri** (8); **gorria ezarri** (8); **hartan ezarri** (8); **hau ezarri** (19); **haxean ezarri** (12); **hemen ezarri** (8); **heriotza zigorra ezarri** (43); **hilabeteko zigorra ezarri** (15); **hori ezarri** (23); **horiek ezarri** (12); **indarrean ezarri** (28); **inguruan ezarri** (9); **isuna ezarri** (46); **isuna ezarri zion** (13); **izena ezarri** (22); **izena ezarri zion** (11); **kanpo ezarri** (23); **kartzela zigorra ezarri** (210); **kartzela zigorrak ezarri** (10); **kartzelaldia ezarri** (16); **larrialdi egoera ezarri** (31); **legea ezarri** (31); **legeak ezarri** (13); **lerroan ezarri** (8); **mahai gainean ezarri** (14); **marka berria ezarri** (12); **marka ezarri** (18); **martxan ezarri** (14); **muga ezarri** (10); **mugak ezarri** (10); **mugarri bat ezarri** (21); **neurri zorrotzak ezarri** (11); **nola ezarri** (14); **non ezarri** (19); **oinarriak ezarri** (17); **ondoan ezarri** (14); **ondoren ezarri** (9); **ordena ezarri** (8); **parean ezarri** (9); **pikoan ezarri** (20); **plana ezarri** (9); **plantan ezarri** (11); **salaketa ezarri** (23); **salbuespen egoera ezarri** (11); **sendo ezarri** (12); **sistema ezarri** (11); **sutan ezarri** (8); **tokian ezarri** (9); **urteko zigorra ezarri** (42); **xutik ezarri** (52); **xutik ezarri dute** (10); **zerbitzuak ezarri** (9); **zergatik ezarri** (10); **zigor ezarri** (17); **zigorra ezarri** (480); **zigorra ezarri die** (19); **zigorra ezarri diete** (11); **zigorra ezarri dio** (60); **zigorra ezarri diote** (72); **zigorra ezarri nahi** (8); **zigorra ezarri zien** (25); **zigorra ezarri zieten** (29); **zigorra ezarri zion** (67); **zigorra ezarri zioten** (122); **zigorrak ezarri** (29); **zigorrik ezarri** (13); **zorrotzak ezarri** (18); **zutik ezarri** (9)

aldez aurretik ezarritako (8); **argitan ezarriz** (8); **aurretik ezarritako** (30); **aurrez ezarritako** (10); **bat ezarriko** (41); **bat ezarriko dute** (9); **bat ezarrita** (9); **bat ezarriz** (22); **berak ezarritako** (14); **buruari ezarritako** (8); **epaileak ezarritako** (11); **espainiako gobernuak ezarritako** (8); **eta ezarritako** (12); **euro ezarriko** (9); **ezarriak dira** (28); **ezarriak izan** (40); **ezarriak izan dira** (15); **ezarriak ziren** (8); **ezarriak zituen** (10); **ezarriak zituzten** (8); **ezarriko da** (28); **ezarriko den** (11); **ezarriko dio** (14); **ezarriko diote** (10); **ezarriko dira** (27); **ezarriko direla** (9); **ezarriko diren** (9); **ezarriko ditu** (38); **ezarriko dituela** (14); **ezarriko dituen** (8); **ezarriko dituzte** (31); **ezarriko dizkiote** (8); **ezarriko du** (55); **ezarriko duela** (21); **ezarriko duen** (10); **ezarriko dugu** (8); **ezarriko dut** (17); **ezarriko dute** (43); **ezarriko dutela** (9); **ezarriko duten** (9); **ezarriko zaie** (10); **ezarriko zuela** (9); **ezarriko zuen** (9); **ezarrita dauden** (12); **ezarritako arauak** (12); **ezarritako baldintzak** (24); **ezarritako bermea** (9); **ezarritako egunean** (8); **ezarritako espetxe** (20); **ezarritako espetxe zigorra** (9); **ezarritako helburuak** (14); **ezarritako irizpideak** (9); **ezarritako mugak** (16); **ezarritako prezioa** (9); **ezarritako zigor** (11); **ezarritako zigorra** (31); **ezarritako zigorrak** (10); **ezarriz eta** (11); **ezarriz gero** (26); **frantzian ezarritako** (8); **gainean ezarriko** (12); **gainean ezarrita** (9); **gainean ezarritako** (8); **gainean ezarriz** (8); **gobernuak ezarritako** (23); **indarrean ezarriko** (8); **iraken ezarritako** (8); **legeak ezarritako** (19); **preso ezarriak** (8); **zigorra ezarriko** (24); **zigorrak ezarriko** (9)

---

ezartzaile *iz* adierazten dena ezartzen duen pertsona.

Bere herritarrentzat zorionaren bilatzaile, beretarrentzat bake-**ezartzaile**. Elizen arteko biblia

Xaharren elgarretaratzetan omore **ezartzaile** zen eta azken aldian oraino dantza jauzitan arizana zen. Herria

LANTEGIAK batasunak galdatzen die Lurralde Kolektibitateei eta lantegien ganbara ezberdinei beren egin ahalak egin ditzaten ez bakarrik kanpotik jiten ahal litaizken diru **ezartzaileen** gibeletik ibiliz, bainan oroz gainetik lekuko ekimenak sustatuz. Herria

---

ezartze *iz* ipintzea; era jakin batean, betekizun jakin baterako ipintzea.

Egia hori bezain biribila da, etengabe forma zaharren ordez forma berriak **ezartze** hori, hizkuntzen bilakaeraren alderdi harrigarrienetako bat dela. Isabel Arrigain

Bestalde, Frantzia zortzi bozgunetan **ezartze** hori ez dea aski molde potretean egina izan? Herria

Orduan gogamena bere ekimenagatik afektatua izateko modua besterik ezin du izan, hots, bere errepresentazioaren **ezartze** honegatik. Ibon Uribarri

Erran gabe doa, ikastetxeak, behar izan dituela arramoldatze lan batzu jasan, ikasle horier lan baldintza hoberenak eskaintzeko gisan (gela moldatze, prefabrikatu **ezartze**, material berritze...). Herria

Ez eta Nixonenaren moduko diru-**ezartze** eskerga bati. Juan Garzia

Azpiegitura publikoak sortu euskararen eta euskal kulturaren **ezartze** eta garatze kostuak murrizteko: Erabilpen anitzeko egitura publikoak sortu normalizazio proiektuak garatzeko. Berria - Euskal Herria

Gogoan izan Kiparsky-ren Fonologia Lexikoa, ordezkatzeen hurrenkera eta **ezartze** modua (ziklikoa edo ez, besteak beste) erabat funtsezko dituen fonologiazko ikuspegia, teoria sortzaile klasikoaren (SPE) berrikuntza arrakastatsuenetakoa izan dela. Lourdes Oñederra

Jainko Gorenaren gorespenak La Verna mendian gertaturiko zauri-**ezartzearen** ondoren esan eta idatzi zituen Frantziskok. Askoren artean

Guztiak gauza beraren izenak dira: norbera den horren ezagutza eta esplizitaziorako oinarriak **ezartzearenak**. Piarres Xarriton

Gozo ginen etxe hartan, baina ez lagunari haxixa eta tripiak erosteko edo gasolina ordaintzeko dirurik **ezartzeari** uko egiten uzteko bezainbat. Aingeru Epaltza

Ontzat eman ditugun egoera idealean, ezin ezar ditzakegu errazago mugak hizkuntzen artean, dialektoen artean baino, ez duelako zer ikusirik, mugak **ezartzeari** dagokionez, dialektoek hartuko duten lurraldearen zabalerak, mugak **ezartzearekin** berakin. Isabel Arrigain

---

ezatsegin *izond* desatsegina.

Tipo **ezatsegin** bat, emakume guztiak maiteminduta dauzkala uste duena. Josu Zabaleta

Consuelo, hamabi-hamahiru urteko alaba, ez zen aita bezain **ezatsegina**, eta ez ama bezain polita ere. Josu Zabaleta

Ordurako, gainera, Charlieri eta bioi antzeman zigun aurpegian, bisitari **ezatseginen** baten esperoan geundela. Mirentxu Larrañaga

Harria jotzen zutenean halako hots **ezatsegin**, bitxi bat egiten zuten, malgutasunik ez duen zerbaitena. Josu Zabaleta

Isiltasun txikia egon da, nire irudiko amaiera aldean isiltasun **ezatsegina** zena. Urtzi Urrutikoetxea

Handik minutu batera, ordea, beste mugimendu ia zehatz batek halako hozkirri **ezatsegin** bat eragin zidan azalean. Josu Zabaleta

Betteren kanpoko ezaugarriak, haren begi oker txikiak eta haren besaurre haragitsuak apaintzen zituzten ile beltz **ezatseginak**. Oskar Arana

Harrigarria zaio Graçari Napumoceno jaunak gertaera **ezatsegin** hori besterik gabe ahaztu izana. Bego Montorio

Ezatsegina zen europarra, eta mespretxuz begiratu zion biltegira sartu zenean. Xabier Aranburu

Saia gaitezen egoera **ezatsegin** honi irtenbide bat ematen, bion onerako izan daiteke eta. Migel Angel Mintegi

-Badakit, Luisa, leku hauek basatiak egiten zaizkit, **ezatseginak**, pertsonen arteko harremanak hondatu egiten dituztela iruditzen zait! Pako Aristi

Atsegina eta **ezatseginaren** sentimendua eta nahimena salbuetsita, ez baitira ezagutzak. Ibon Uribarri

Nire buru bakarti gorri **ezatseginaz** apainduan. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atsegina eta ezatsegina** (4); **eta ezatsegina** (5); **ezatsegin bat** (5); **ezatsegina zen** (4)

---

ezatseginkiro *adlag* atsegina ez den eran.

-Maitagarria - **ezatseginkiro** kakotu zuen ezker bekaina Gregoryk-. Iñaki Zabaleta

---

ezaugarri *(orobat **ezagugarri** g.er. eta **ezagutgarri** g.er.)* **1** *iz* zerbait ezagutarazten duen zera; gauza bat edo gauza multzo bat besteetatik bereizten duen, zerbaiti nortasuna ematen dion tasun edo seinale nagusia.

Egun hartan bertan, **ezaugarri** bat eman zuen Jainkoaren gizonak, esanez: "Honetan igarriko duzue Jaunak hitz egin duela: Zartatu egingo da aldarea eta lurrera isuriko gainean duen errautsa". Elizen arteko biblia

Hiru berezitasun horiek azpimarratuko nituzke, bada, XX. mendearen **ezaugarri** gisa: [...]. Pello Salaburu

Zein **ezaugarri** eman diezaioket ezagut nazan, sinets diezadan eta dirua eman? Elizen arteko biblia

Bi hitz edo **ezaugarri** hauek gauza bat bera ezagutzera ematen digutelako. Imanol Unzurrunzaga

Erregulartasun horiek argiaren hiru **ezaugarriri** dagozkio, batez ere: argiaren intentsitateari, haren uhin-luzerari eta espazioan duen banakuntzari. Josu Zabaleta

Frantziskoren idazkietan (hark idatzi nahiz diktaturiko testuetan) zenbait **ezaugarri** nabari daitezke haren hitz egiteko edo idazteko bereizgarri gisa. Askoren artean

Bertso honen bigarren hitza ez da **ezaugarri** bat, ez duelako deus ezagutzera ematen; eta oker onartu dugu biok, hitz oro dela **ezaugarri** edota **ezaugarri** orok zerbait ezagutzera ematen duela. Imanol Unzurrunzaga

Konputagailu aurreratu baten **ezaugarri** asko ditu garunak. Irene Aldasoro

Abagune ezin hobea, zalantzarik gabe, esker oneko **ezaugarri** bat gure herriari eskaintzeko, Arantzazuren alde egin duen guztiagatik. Askoren artean

Eredugarri diren unibertsitatearen **ezaugarriak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egia sakon ororen **ezaugarria** da haren kontrakoa ere egia izatea. Iñaki Segurola

Garapen-bideko ekonomien **ezaugarri** den kapital faltaren arazoak badu alderdi kualitatibo bat ere. Koro Navarro

Kurba baten ekuazioari esker, kurba horren **ezaugarri** guztiak jakin daitezke. Jon Muñoz

Ezagutza sintetikoen ahalgarritasunaren **ezaugarria** beti esperientzian soilik bilatu behar baita. Ibon Uribarri

Odola izango duzue **ezaugarri** etxeetan. Elizen arteko biblia

Nire nekaldiaren **ezaugarri** diren zauriak eman dizkizut, nire ikurrinaren eramaile izan zaitezen. Askoren artean

Zoaz, hala ere, azaldu apaizarengana eta eskaini Moisesek agindutako oparia zeure garbitasunaren **ezaugarri**. Elizen arteko biblia

Baserrietako teilatu askotan ikusten zen **ezaugarria** ez al zen, garai bateko gurutzearen ordez, telebistaren antena? Bernardo Atxaga

Haien **ezaugarriak** aztertu nituen. Koro Navarro

Aurpegiaren **ezaugarriak** aldatu egiten dira. Joseba Sarrionandia

Pobrezia (eta berak atxikita daramatzan **ezaugarriak**: ahuleziak, informaziorik eza, azpiegitura urriak, higiene eskasa, osasun txarra, tristezia existentziala, bizirik irauteko delinkuentzia...) heredatu egiten da, **ezaugarriak** areagotuz doazela, erabateko pobrezia gorriraino iritsi arte. Edorta Agirre

Ordena doriar eta korintoarrari buruzko arauak eman behar ditut, oro har, horietako bakoitzaren berezitasunak eta **ezaugarriak** azalduz. Santiago Iruretagoiena

Beharbada horixe da bizidunon **ezaugarri** eta patua: erantzukizunei heltzea, gure hoben eta inperfekzioekin aurrera segitzea. Daniel Landart

Mobbing motak, jazarleen **ezaugarriak** , eta jazarpena jasaten ari direnen sintomak laburbiltzen ditu eskuliburuak. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Zolitasuna da ikuspen honen **ezaugarri** nagusia. Josu Zabaleta

Era horretara definituriko ikur linguistikoak bi **ezaugarri** nagusi ditu. Isabel Arrigain

Herri edo eskualde jakin batzuetan aurkitutako berrikeriak eta bitxikeriak mendebaleko **ezaugarri** jator eta benetakotzat hartu zituzten XIX. mendeaz geroko gramatikalariek. Koldo Zuazo

Hau da tronuaren eskubiderik handiena, hau soberanotasunaren **ezaugarririk** kutunena. Juan Martin Elexpuru

Euskal zinemak **ezaugarri** jakin batzuk ditu, *Figura identitarioak euskal zineman* tesiaren egile Andres Zamoraren esanetan. Berria - Kultura

Ezaugarri komun asko ditugu ez animaliekin bakarrik, baita landare eta haziekin ere. Imanol Unzurrunzaga

Bi hizkuntzek, elkarren ondokoak direnean, izan dezakete **ezaugarri** komun bat, hizkuntza talde berezirik osatu gabe. Isabel Arrigain

Gizakiaren **ezaugarri** bakarra ez da razionaltasuna (homo sapiens), ez da teknika (homo faber), ez da utilitarismoa (homo oeconomicus), ezta beharrezko beharrak ere (homo prosaicus). Askoren artean

Idazlan akademikoaren **ezaugarri** orokorrak. Askoren artean

"Sistemetan" **ezaugarri** generikoen kontzeptua seinale arbitrarioa da, nahiz eta ez den nahasgarria generoak izendatzeko orduan; metodoetan kontzeptu horrexek generoaren benetako definizioa estali behar du. Xabier Arregi

Osagai-egitura sistemaren **ezaugarri** formalak ikergai interesgarria dira. Itziar Laka

Kultur-adierazpen askoren ohiko **ezaugarrietako** bat da belaunaldien arteko haustura. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Garapen-bideko ekonomien **ezaugarri** ohikoa. Koro Navarro

Elortzaren **ezaugarri** pertsonalak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia eta abar. Ramon Saizarbitoria

Biziki hizkuntza interesgarria iduritu ziztaidalakotz, **ezaugarri** ikusgarriekin. Herria

Ezaugarri fisikoen erabilera linguistikoaren auziaz hobeto jabetzeko, on liteke gogoratzea alor segmentalean gertatzen denaz. Lourdes Oñederra

Hots mota nagusien **ezaugarri** grafikoak, labur eta eskematikoki, honako hauek dira: [...]. Lourdes Oñederra

Ezaugarri positiboak: lanaren erabilgarritasuna, interesa, berritasuna, etab. Askoren artean

Mundu-ekonomia kapitalistaren **ezaugarri** bereizleak. Koro Navarro

Segurtasuna da edozein kontrazepzio metodok izan behar duen **ezaugarri** behinena. Luis Elberdin

Ez dagoela dialekto naturalik, **ezaugarri** dialektal naturalak baizik. Isabel Arrigain

Bat-bateko bertsolaritzaren **ezaugarri** sozio-kulturalen azalpen kritiko bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

1984ko irailaren 10ean, **ezaugarri** genetikoak identifikatzeko sistema garatu zuen lehen aldiz Alec Jeffreys Erresuma Batuko Leicesterko unibertsitateko zientzialariak. Berria - Gaiak

Ezaugarri zehaztugabeko gorputz batek argi mehearen bidea trabatu zuen, gelako ate erdi irekitik. Aingeru Epaltza

Krotonako Alkmeonek giza aberearen **ezaugarri** bereizgarrien artean kokatzen du pentsamendua. Askoren artean

Otomandar Inperioak, Zesarrek hasitako erregimenaren eta berak ordeztutakoaren arteko desberdintasun moral harrigarria ez zen historia helenikoaren **ezaugarri** berezia. Iñaki Mendiguren

Nolatan ematen dizkio konbinazio harrigarri horrek hezurrari aparteko **ezaugarri** mekaniko horiek? Irene Aldasoro

Ilusio bete-bete bat da, beraz, gure ikusmen-sistemaren berezko **ezaugarrietako** batean oinarritua. Josu Zabaleta

Gramatika formaldatzailearen berezko **ezaugarri** batzuk. Itziar Laka

Ezaugarri bere-berezkoak, nortasun sendoa, sentiberatasun eta estilo pertsonala. Xabier Olarra

Ikurra beti, neurri batean, gizabanakoaren edo gizartearen borondatearen gain dago, eta hortan datza, hain zuzen, bere funtsezko **ezaugarria** . Isabel Arrigain

Nire ustetan, abertzaletasunak baldin badu **ezaugarri** funtsezkoren bat, hori euskara da. Pello Salaburu

Ikusle baten eta balio plastikoen jokoaren arabera antolatuta dagoen irudi baten arteko distantzia psikologikoa erregulatu behar da; kontuan harturik, oinarri-oinarrizko **ezaugarria** baita. Josu Zabaleta

Bizi-proiektu guztiek, gizabanakoek zein besteekin batera burutuek, porrota dutela ezinbesteko **ezaugarri** , eta porrotaren ikuspegitik ikasi behar dela maitatzen. Anjel Lertxundi

Azterlan honetan lehenago ikusi dugun bezala, Bizantziar Zibilizazioaren estatu unibertsal bilakatu zenak, ametsezko hilezkortasunaren **ezaugarri** berberak agertu zituen, jadanik "Europako Gaixo" bihurtua zen garaian. Iñaki Mendiguren

Ereduak ez dira izaten egitura fisikoak, analogia edo teoriak baizik, ikertzen den sistemaren egitura, funtzio eta portaera beste sistema baten **ezaugarri** dagoeneko ezagunekin erlazionatzen dituztenak. Irene Aldasoro

Berdintasunaren aldeko jarrera da ezkertiarraren **ezaugarririk** nabarmenena. Berria - Kultura

Hona hemen aditz laguntzaile batuaren **ezaugarririk** esanguratsuenak. Koldo Zuazo

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Terminoaren zentzu tekniko estuago horri leku egiteko, on da *ad cantus* ideia osorik jasotzen duen **ezaugarri** bilduma adieraz dezakeen PROSODIA terminoa erabiltzea gainerakoan. Lourdes Oñederra

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jesusi jarraitzea eta Erreinuaren iragarpena zoriontasunen ildotik anaiartean bizitzea: horra hasierako anaiartearen nortasun-**ezaugarriak** . Askoren artean

Mendebaldeko baroi barbaro hauek badituzte nazio-**ezaugarri** maltzur batzuk -lotsagabekeria, oldarkeria, gutizia, sortzen zaien edozein grinari amore ematerakoan beren buruaren kontrolik eza eta, azkenik, baina ez garrantzi gutxienekoa, berritsukeria-. Iñaki Mendiguren

Uraren indarrak, beraz, gorputzean sartzen denean, bakoitzari bere kolore-**ezaugarria** txertatzen dio, bere motari dagokiona. Santiago Iruretagoiena

Duintasun paregabez estali zuen eta aginte-**ezaugarriz** koroatu: galtzaz, soingainekoz eta efodaz. Elizen arteko biblia

Bere funtsezko bereizgarritasun-**ezaugarria** dela eta, ordea, tesiari arrazoimen hutsaren dogmatismoa deituko diot. Ibon Uribarri

Hain garbiak ziren Frantziskoren santutasun **ezaugarriak** , ez baitzen inor hari aurre egitera ausartzen, herri osoak hari bakarrik egiten baitzion jaramon. Askoren artean

Literatur molde eta forma-**ezaugarri** aski ezberdinetako testuak dira. Askoren artean

Ingeniariak hautematen duen bigarren diseinu-**ezaugarri** harrigarria, berriz, zera da: motor baten ordez, seiehun motor baino gehiago dituela gorputzak. Irene Aldasoro

Pentsa dezagun ordea, AZENTU eta ERRITMO **ezaugarriez** jabetzeko, esaldiaren esanahiaz. Lourdes Oñederra

Hizkuntza oro, barruko zatiketa dialektal bat da, hainbat hizkuntza **ezaugarriren** elkar nahaste edo egite konplexu bat. Isabel Arrigain

Dialekto **ezaugarrien** estudioa hizkuntza kartografiako lanen abiapuntua izan da. Isabel Arrigain

Entzun bezate zure apaiz-laguntzaileok, ernetzeko dagoen salbamenaren aurre-**ezaugarri** direnok. Elizen arteko biblia

Hizkuntzalariek, oro har, gramatika zuzenen oinarrian dauden funtsezko barne-**ezaugarriak** zehazteko xedearekin jardun behar dute. Itziar Laka

5 *izond* ezagutarazten duena.

Hiponako Agustin filosofo eta teologoaren lanik **ezaugarrienak** hautatu dira. Imanol Unzurrunzaga

Kameraren diafragmak begiko irisa imitatzen du, begiari bere kolore urdin edo marroi **ezaugarria** ematen diolako erraz ezagutzen den eraztuna. Irene Aldasoro

6 ***ezaugarrizko*** *izlag*

Hitz joko horren bitartez, irudikapenezko irudiaren eta haren ikuslearen **ezaugarrizko** bi fenomeno (analogia, alde batetik, eta ikuslearen sinestea, bestetik) lotzen dituen muin-muineko lotura azpimarratu nahi izan zuen. Josu Zabaleta

Irrika orala, adibidez (abereak duen elikatu beharretik sortua); giza psikismoaren **ezaugarrizko** irrika da, instintuak bazterturik irrikak baliatzen dituen zentzuan. Josu

Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

azken ezaugarri (6); **badu ezaugarri** (8); **baina ezaugarri** (10); **baten ezaugarri** (21); **baten ezaugarri guztiak** (6); **bere ezaugarri** (34); **beren ezaugarri** (8); **berezko ezaugarri** (10); **bertsolaritzaren ezaugarri** (6); **beste ezaugarri** (71); **beste ezaugarri bat** (21); **beste ezaugarri batzuk** (19); **bi ezaugarri** (56); **bi ezaugarri horiek** (14); **bi ezaugarri nagusi** (9); **bigarren ezaugarri** (6); **da ezaugarri** (10); **den ezaugarri** (10); **dira ezaugarri** (11); **diren ezaugarri** (19); **dituen ezaugarri** (19); **dituzten ezaugarri** (11); **du ezaugarri** (18); **duen ezaugarri** (8); **dute ezaugarri** (10); **duten ezaugarri** (15); **edo ezaugarri** (12); **ere ezaugarri** (9); **eta ezaugarri** (59); **ezaugarri asko** (20); **ezaugarri bakarra** (8); **ezaugarri bat** (104); **ezaugarri bat da** (6); **ezaugarri batzuen** (7); **ezaugarri batzuk** (52); **ezaugarri batzuk ere** (8); **ezaugarri berberak** (9); **ezaugarri bereko** (6); **ezaugarri berezi** (15); **ezaugarri berezia** (6); **ezaugarri bereziak** (23); **ezaugarri bi** (6); **ezaugarri bidez** (6); **ezaugarri da** (8); **ezaugarri den** (14); **ezaugarri desberdinak** (6); **ezaugarri diren** (7); **ezaugarri ditu** (18); **ezaugarri edo** (9); **ezaugarri eta** (43); **ezaugarri fisiko** (13); **ezaugarri fisikoak** (16); **ezaugarri formalak** (6); **ezaugarri genetiko** (6); **ezaugarri genetikoak** (18); **ezaugarri gisa** (13); **ezaugarri guztiak** (36); **ezaugarri guztien** (9); **ezaugarri haiek** (6); **ezaugarri hau** (19); **ezaugarri hauek** (19); **ezaugarri honek** (8); **ezaugarri hori** (37); **ezaugarri horiei** (7); **ezaugarri horiek** (71); **ezaugarri horiek guztiak** (7); **ezaugarri horiekin** (6); **ezaugarri horien** (16); **ezaugarri horietako** (8); **ezaugarri horrek** (8); **ezaugarri izan** (18); **ezaugarri izan behar** (7); **ezaugarri jakin** (11); **ezaugarri jakin batzuk** (7); **ezaugarri komun** (19); **ezaugarri komun bat** (9); **ezaugarri komunak** (7); **ezaugarri nabarmen** (7); **ezaugarri nagusi** (34); **ezaugarri nagusi ditu** (8); **ezaugarri nagusia** (108); **ezaugarri nagusia da** (8); **ezaugarri nagusiak** (57); **ezaugarri nagusietako** (22); **ezaugarri nagusietako bat** (20); **ezaugarri nagusitzat** (6); **ezaugarri orokorrak** (10); **ezaugarri oso** (7); **ezaugarri propioak** (9); **funtsezko ezaugarri** (6); **gizakiaren ezaugarri** (7); **haien ezaugarri** (8); **hainbat ezaugarri** (26); **haren ezaugarri** (11); **hauen ezaugarri** (6); **hiru ezaugarri** (36); **hiru ezaugarri horiek** (6); **honen ezaugarri** (12); **horien ezaugarri** (11); **horren ezaugarri** (25); **horren ezaugarri nagusia** (7); **oso ezaugarri** (8); **politikoaren ezaugarri** (6); **politikoaren ezaugarri nagusia** (6); **zein ezaugarri** (12); **zenbait ezaugarri** (33); **zer ezaugarri** (15); **zer ezaugarri ditu** (6); **zuen ezaugarri** (9); **zuten ezaugarri** (12)

antzeko ezaugarriak (25); **antzeko ezaugarriak dituzte** (6); **artearen ezaugarriak** (7); **bakoitzak bere ezaugarriak** (7); **bakoitzaren ezaugarriak** (7); **baten ezaugarriak** (14); **bere ezaugarriak** (30); **bere ezaugarrien** (6); **bere ezaugarririk** (6); **berezko ezaugarria** (13); **berezko ezaugarriak** (9); **beste ezaugarrietako** (8); **beste ezaugarrietako bat** (8); **diren ezaugarriak** (25); **dituen ezaugarriak** (14); **dituzten ezaugarriak** (9); **duen ezaugarria** (8); **duten ezaugarriak** (10); **eta ezaugarriak** (16); **euskal artearen ezaugarriak** (6); **ezaugarria da** (35); **ezaugarria dela** (13); **ezaugarria ere** (7); **ezaugarriak aintzat** (7); **ezaugarriak aztertu** (6); **ezaugarriak biltzen** (8); **ezaugarriak dira** (12); **ezaugarriak ditu** (21); **ezaugarriak dituen** (8); **ezaugarriak dituzte** (10); **ezaugarriak dituzten** (11); **ezaugarriak ere** (10); **ezaugarriak eta** (33); **ezaugarriak ez** (13); **ezaugarriak hartzen** (6); **ezaugarriak izan** (12); **ezaugarriak kontuan** (18); **ezaugarriak kontuan hartuta** (7); **ezaugarriak zituen** (6); **ezaugarriei buruz** (7); **ezaugarrien arabera** (15); **ezaugarrien artean** (11); **ezaugarrietako bat** (76); **ezaugarrietako bat da** (14); **ezaugarriez eta** (6); **ezaugarriren bat** (12); **ezaugarririk gabe** (8); **horien ezaugarriak** (6); **horren ezaugarriak** (16); **hotsen ezaugarria** (6); **itunaren ezaugarria** (7); **nolako ezaugarriak** (6); **zer nolako ezaugarriak** (6)

---

ezaugarritu, ezaugarri(tu), ezaugarritzen da/du *ad.* ezaugarriren baten bidez bereizi edo nabarmendu. lk. **seinalatu**.

Iruditu zitzaidan, esaterako, medikuntza-zientzia XIX. mendetik aurrera gehienbat **ezaugarritzen** zela nolabaiteko estilo bategatik, enuntziatuaren nolabaiteko izaera iraunkor bategatik, eta ez hainbeste bere objektu edo kontzeptuengatik. Xabier Arregi

Konstante dirautenak ez dira objektuak izango, ezta eurek taxutzen duten eremua ere, konstante dirautenak ez dira, ezta ere, euren azaleratze puntuak edo **ezaugarritzeko** moduak izango. Xabier Arregi

---

ezaugarritze *iz* ezaugarriren baten bidez bereizi edo nabarmentzea.

Harremana, alde batetik, kategoria penalen eta erantzukizun maila gutxituen gisako zehaztapen planoen eta, bestetik, **ezaugarritze** psikologikoen planoen artean. Xabier Arregi

Harreman hauek ezartzen dira erakundeen artean, ekonomia eta gizarte prozesuen artean, jokaeren artean, arau-sistemen artean, sailkapen moten tekniken artean, **ezaugarritze** moduen artean, eta harreman hauek ez dira objektuan presente izango. Xabier Arregi

---

ezaupide *(ETCn **258** agerraldi; orobat **ezagupide** ETCn **94** agerraldi) iz* **1** ezaguera.

Papak jai-alai jokalari denen banan-banako **ezaupidea** zuen, eta haietako gehienak Fincara etorri izaten ziren, edatera eta igeri egitera. Edorta Jimenez

Ontziko gizonek ene lehengusu Hernandoren **ezaupidea** ez izatea zilegi zen, gurean gizonak gutxitan erreparatzen baitio gaztetxoari. Edorta Jimenez

Horrela, mundu guztiaren **ezaupidean** dagoen Pilar Q-ontziz mozorroturiko haren ibilerak eta espioitza sarearen kontuak biribilketa baten tartean izan zirela argiturik utzi gura izan du. Edorta Jimenez

Bai gauza ederrak **ezaupidea**, konfiantza, adiskidetasuna; bai, baina gauza eder askotxok bezala, zaputza, errea eta ustela oso bertan eta berekin dituztenak. Iñaki Segurola

"Beti gustatzen zait **ezaupidea** eskaini zigun pertsona ikustea", esan diot. Bernardo Atxaga

Nahiz eta zuk **ezaupide** guztiak eduki, zuretzat egiazko bizitzarenak diren **ezaupideak**, maitasunaren testigantza hau sentitzen ez baduzu, galdu zara. Joan Mari Lekuona

Bertan behera utzi beharra material hark eskura jar ziezadakeen guztia; idatzi gabeko errezetatxoen, organismo horrekiko lanaren inguruko folklorearen **ezaupideak** ematen duen intimitate gisako horri uko egin beharra. Juan Garzia

Ez dago leku hoberik New Yorken eta hilabete batzuk barru hemen ezin izango duzue ezer aurkitu, ez **ezaupideez** ez diruaz baliatuta. Lopez de Arana

Joko-taulari begira, erabat gizalegezkoa duzu bestearen **ezaupide** pertsonalean aurreratzeko gogorik ez erakustea, zure arreta osoa xakeari emanik. Joxe Austin Arrieta

Krimenari buruz komisarioak zuen **ezaupide** guztia liburuetakoa zen. Joxean Agirre

Beharbada nik ere bere obraren **ezaupide** hurbila nuen, tamalez berarekin lotura iraunkorrik ez banuen ere. Joxean Agirre

Jar zitzaketen negozio guztietatik, bat bakarra jar zezaketen inbertsio handiegirik eta **ezaupide** zehatzik gabe, merkantzi salerosketa besterik ez. Joseba Urteaga

Ohitu nintzen irribarre itzal hartara, hasi nintzen parrokiano fijo harganako interesa hartzen, eta harekin **ezaupide** estuagoan sartzeko gogoa erne zitzaidan. Matías Múgica

Jaunak bere errukian dohain hau eman dit: atsegin edo atsekabe ematen diodan gauza guztiez otoitzean **ezaupide** argia izatea. Askoren artean

Gure herrietako erromeriak ez ziren ahazteko, Abadiñokoa eta beste bezala: San Blas eta Santa Agedako periak, mutil-neskatxen **ezaupideak**. Pello Zabala

2 ***ezaupidea egin.***

Eta zehatz-mehatz kontatu zion nola **egin** zuen jeneralaren **ezaupidea** eta nola hautsi zen haien adiskidetasuna. trenean, bai, **egin** dugu elkarren **ezaupidea** hainbatek. Jose Morales

Zazpigarren mailako funtzionarioek, agian, gogo onez **egingo** dute haren **ezaupidea**, baina batek daki nola hartuko duten jeneral-mailara iritsi direnek. Jose Morales

Txitxikovek erantzun zuen ordurako izana zuela, ezustean, haren **ezaupidea egiteko** zoriona. Jose Morales

Hire etxera agertu gintunan lagun batzuen **ezaupidea eginda**. Javi Cillero

Artega jartzen ninduen ohitura, elkarren **ezaupidea egin** berritan, nik bera artean ondo ezagutzen ez nuenean. Irene Aldasoro

4 ***ezaupideak egin.***

Zaharrak keinu bat egin zion, **ezaupideak egin** aurretik. Javi Cillero

Lanbideak jende aunitz eta aunitzekin **ezaupideak egiteko** parada ematen dit, baina tratuak jarraipenik izan ezean, buruan errausten zaizkit izenak eta aurpegiak, bertze aurpegi eta izen berriek ordezkatuak, elkartu gaituen auzia nire interesen esparrutik desagertu bezain agudo. Aingeru Epaltza

4 *(norbaiten)* ***ezaupidea izan*** du *ad.*

Ontziko gizonek ene lehengusu Hernandoren **ezaupidea** ez **izatea** zilegi zen, gurean gizonak gutxitan erreparatzen baitio gaztetxoari. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten ezaupidea (6); **baten ezaupidea egin** (5); **ezaupidea egin** (14); **ezaupidea egiten** (5); **haren ezaupidea** (6)

---

ezautu ik **ezagutu**.

---

ezaxola *(orobat **ezaxol** g.er. eta **ezazol** g.er.)* **1** *izond* axolagabea.

Hain moldakor, hain **ezaxola** izanik, ez zion gogor egiten Williamsburgeko ur geldietan murgilduta geratzeari. Xabier Olarra

Baina Abel ez zen gizon **ezaxola**. Daniel Landart

Errege Henrike lehenago airatua zen, bere soldadu guztien isilean eta bere koinatu **ezaxola** madarikatzen. Aingeru Epaltza

Ni bezalako ikusle **ezaxola** batek ikusten ditu hiena, armiarma eta zuhaitza, eta azalpen bat ematen dio bere buruari. Josu Zabaleta

Gérard-ek, begien aitzinean kea baizik ez ikusteko heinean dagoen gizon edanaren begitartearekin eta zeiharkako irri zozo, **ezaxol** eta mespretxagarriarekin erantzuten dio. Eneko Bidegain

Ahotsean nostalgia kutsu bat nabari zuen: gazteek zerbaiten desira eta nostalgia sentitzen dute beti, susmopeko aberri **ezaxola** eta beldurgarri batena, mundua deritzon aberri horrena. Xabier Olarra

Gorputz bat nola iraungitzen den jainkoen begirada **ezaxola** eta ironikoaren azpian. Jon Alonso

Amorragarria haren aire **ezaxola**. Aingeru Epaltza

Beste gauza batzuerarako hain **ezaxola** izan arren, nagusi erabateko zen kontu hartan. Xabier Olarra

Neu ere ez bainaiz maitasun erromantikoaren zale itsu horietakoa, baina ezin naiz **ezaxol** izan sufrimenduaren aurrean. Ramon Saizarbitoria

Manera **ezaxola** horretan hitz egina jada deitoratzen zuen. Itxaro Borda

Amorragarria haren aire **ezaxola**. Aingeru Epaltza

Kontu zaharrei eta zaharren kontuei dagokienez **ezaxola** hutsa izan naiz oraintsu arte. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (adizlagun gisa)

Bikote bat doa kale erditik, **ezaxola**, bera bezala, ileak bekokian itsatsita, praka barrenak arrastaka. Alberto Barandiaren

Gizon gehienak hainbeste bortizkeriaren aitzinean mutu eta **ezaxola** geratzen ziren; Aljerialat etorri berriak aldiz trenputxartzen ziren, izutzen eta sabel husten. Itxaro Borda

Neskekin zigarroa erretzen geratu nintzen lasai-lasai, Fructuosok egiten zuenari **ezaxola**. Inazio Mujika Iraola

Kristina mutikoaren maletari emana zegoen beti, nire ahalegin hutsalei **ezaxola**. Aingeru Epaltza

Hamaika larritasunen eta iheslarien aurkako hamaika jazarpenen lekuko izan dira hango irudi santuak, aiene guztiei **ezaxola**. Jokin Urain

Lehenbiziko aldiz susmatzen du zer izan daitekeen gizon zahar bat izatea, hezurretaraino akitua, itxaropenik gabe, nahikaririk gabe, etorkizunaz **ezaxola**. Oskar Arana

Bestearen ihardespen hirukoitzaz **ezaxola** agertu nahiak bultzaturik. Juan Garzia

Gure arazoez **ezaxola**, Berlusgoñik bere hainbatgarren esperimentu literarioaz ari zen. Jon Alonso

Gora eta behera batzuk, beste batzuk berriketan talde txikitan banatuta, heldutako autoaz erabat **ezaxola**. Koldo Biguri

Enuntziatuaren subjektua izango da horrelako proposizio bat formulatzeko edozein gizabanakok bete dezakeen posizio guztiz neutroa, denborarekiko, espazioarekiko eta zirkunstantziekiko **ezaxola**. Xabier Arregi

"Gizon hotzegia eta guztiarekiko **ezaxola"** Onaindiaren hitzetan. Jokin Urain

Ezaxola, gurinaz gantzutu nuen croissantik hurbilena. Aingeru Epaltza

Beharbada, "nik ere maite zaitut apurtxo bat" erantzungo zukeen, emakumeek sarritan erabili ohi duten formula baita gurekiko ez direla erabat **ezaxol** sentitzen esateko. Ramon Saizarbitoria

Beharrezko da helburutzat edukitzea zertarako sortua izan nintzen, hots, Jainko gure Jauna goresteko eta ene arima salbatzeko; eta horregatik batere nahikari okerrik gabe **ezaxol** sentitzea, ez nagoela gauza eskainia hartzeko uzteko baino makurtuago eta lehiatuago. Patxi Altuna

Kafetegiko kristalaz bestaldean, **ezaxola**, euria hasi zuen. Fernando Morillo

Atzetik, isilik zihoan soldadua, **ezaxola**. Urtzi Urrutikoetxea

3 *iz* axolagabetasuna; axolagabekeria.

Badakit zuretzat, maitasunean **ezaxola**, arintasuna, jolasa maite duzun horrentzat, tamalgarria izango zatekeela bat-batean aita, bat-batean patu baten erantzule bihurtzea. Eduardo Matauko

Deskonexioa eta **ezaxola** alde batera utzi, eta oso animaturik hasi zen bere rock talde eta pieza gustukoenez hizketan: batez ere Grateful Dead taldeaz. Xabier Olarra

Nigan erreprimitzen zuen bere baitan eraman ezin zezakeena: berotasuna, ordena eza, **ezaxola**, sentsualitatea. Joxan Elosegi

Lehenik eta behin, ordea, "iritzi publikoa inarrosi" behar ei zen eta "apatia, **ezaxola**, baita zalantza ere" uxatu. Urtzi Urrutikoetxea

Emakume hura beste arrazoi bat izango zela zure gutunak **ezaxola** osoenaz hartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Semea, hogeita bi urtekoa, garaia, Aitarenganako erdeinu gorde batean eta amarenganako **ezaxola** itxi batean ia gogorturik. Josu Zabaleta

Maria Gorozikak ezin zuen ulertu kazetarien ageriko **ezaxola**. Lutxo Egia

Gero ezpainak bildu zituen, helmugari buruzko **ezaxola** indartzeko. Anjel Lertxundi

Ortega-k behin eta berriro agertu du bere susmoa, eman ohi ziren Espainiaren gaitzaren esplikazio guztiak, Bourbondarren etorreraz, edo 98ko desastreaz, edo elizaren itxikeriaz, edo jendearen alferraz, edo **ezaxola** publikoaz, etab., kaskalak zirela denak. Joxe Azurmendi

Lucyren etorkizuna, bere etorkizuna, herrialde osoaren etorkizuna... **ezaxola** kontua da guztia, esan nahi luke berak; izorra dadila guztia, bost axola niri. Oskar Arana

Baina ez zuen **ezaxola** keinua ezkutatzen, eta laztantzen nuen bitartean beste aldera begiratzen zuen, nireen ordez beste esku batzuk sentituko balitu bezala. Lander Garro

Zure mespretxu, zure hoztasun, zure **ezaxola** mota guztiak burutik paseak zitzaizkidan ikuskizun beldurgarrietan. Eduardo Matauko

-Ez -erantzun zion, **ezaxola** plantak eginez-, ni ez noa zurekin, Wendy. Julen Gabiria

4 ***ezaxolaz*** *adlag*

Zein? -galdetu zuen Pepponek, **ezaxolaz**. -L'Osservatore romano, mesedez -esan zuen, **ezaxolaz**, baina probintziatik kanpo ere entzungo zioten moduan. Mirespen eta begirunez erreparatzen nion aurrena, **ezaxolaz** eta ikusi ere gabe hurrena, eta benetako gaitzerizko eta behazunez azkena. Koldo Biguri

-Mirari, nahi duzu laguntzea? -eskaini zitzaion, hitzak **ezaxolaz** tindatzen ahaleginduz. Fernando Morillo

-A, orduan zu izan zinen, ene seme, petardoa bota ziona? -galdetu zuen **ezaxolaz** bezala gotzain zaharrak. Koldo Biguri

-Eta nitaz fidatzen al haiz? -galdetu zuen On Camillok, **ezaxolaz** bezala. Koldo Biguri

Bere aurretik egin zuen gizon txikiak etxera: txistuka, zirika-mirika, **ezaxolaz** bezala zebilen. Pablo Sastre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta ezaxola (5); **ezaxolarik duinena** (5); **ezaxolaz bezala** (5)

---

ezaxolakeria *(orobat **ezaxolkeria** g.er.)* *iz* axolagabekeria.

Ohiturak ordea **ezaxolakeria** dakar. Jon Muñoz

Hilerriak lorez gainditurik, ageri zuten **ezaxolakeria** eta ahanzdura oraino urrun direla gure bihotzetarik. Herria

Zenbatenaz zure **ezaxolakeriaren** aipua etengabe baitakarkidate, hanbatenaz mingarriagoak zaizkidan oinazeen peko. Jon Muñoz

Nire galde behin eta berriz errepikatuei hain luzaz ukatu zizkion gutunak berak, **ezaxolakeriaz** dizkit emanen. Jon Muñoz

Aski kezkabide ederra banuen haatik, neure **ezaxolakeria** guztizkoak kezkatik begiratu ez baldin banindu. Jon Muñoz

Koskan zen eta ikasle seriosek ordaindu dute agertu ez direnen **ezaxolakeria**. Eneko Bidegain

Osaba hilaren aurpegi zuhaila, senideen negarra, ume txikien beldurra batzuetan, **ezaxolakeria** bestetan. Pako Aristi

Cardiffeko legebiltzarraren «**ezaxolakeriarekin**» etsita, desobedentzia zibilari ekin dio Cymunedek Erran zidan ikasle batek gero eta zorrotzago bilakatu nintzela emeki emeki, oharrak botatzen nituelako eskuin eta ezker **ezaxolakerian** bizi zirelakotz omen gazteak beren fedeari buruz.Zazpigarrenekorik, erraten da, egia hau ongi gogoan hartu eta aski dela, gure Jainko Handiaren aitzinean burua ukurtzeko eta ohartzeko zein gaitza den gure **ezaxolkeria**, behar genukeelarik gure indar guztiez bilatu delako laguntza berezia eta harekilako grazia eta iraupena. Berria - Mundua

---

ezaxolaki *adlag* axolarik gabe.

Huna zer den ene beldurra; erdarari sobera trebatuz, Euskaldunek premia ttipitan har dezaten herriko mintzaia, eta geroztik **ezaxolaki** bazterrera utz dezaten. Xipri Arbelbide

---

ezaxolatasun *iz* ezaxolaren nolakotasuna.

Ohiturarekin zaio **ezaxolatasuna** nagusitu. zure azken erantzunean adierazia datorren ukoa ikusi ondoren, hartu dut oharpenei eta liskarrei sekula gehiago biderik emanen ez dien **ezaxolatasun** bati atxikitzeko xedea. Jon Muñoz

Baina zuk ez duzu zin hori hartu nahi; zure isiltasunak garbi jakinarazten dit zeure bihotzak ez diotsula deusik nire alde; horra zure **ezaxolatasunaren** frogarik ziurrena. Jon Muñoz

Zure azken erantzunean adierazia datorren ukoa ikusi ondoren, hartu dut oharpenei eta liskarrei sekula gehiago biderik emanen ez dien **ezaxolatasun** bati atxikitzeko xedea. Jon Muñoz

---

ezaxolati **1** *izond* axolarik ez duena, axolagabetasuna adierazten duena.

Hark, **ezaxolati** izaki, bihotz-zabala guztiz, eta azpikeriaren usainik gabea, ez ditu miatuko armak. Juan Garzia

Praktikara emanago zen teoriara baino, giza goxotasunez betea, katolikoa zurruntasunik gabe, eskuzabal eta **ezaxolatia**. Juan Garzia

Zigarrokinaren parabola laburra -ez du urrutiegi erori behar-, zangoaren aurrerakako mugimendu **ezaxolatia**, oinetako puntaren zapaltze-ekintza sotila, pixka bat luzatzea atsegin duena. Iban Zaldua

Gero, zerbait garrantzitsua esatera doan baina igartzerik nahi ez duenaren keinu **ezaxolatia** agertu zaio aurpegira. Pako Aristi

Iriarteren aurretik sartu zara, gainerako ikasleen jarrera **ezaxolati** berarekin. Jokin Muñoz

Nahiz eta zurruntasun lehor eta **ezaxolatiaren** itxura eman. Anton Garikano

Baina seme hori niretzat dena zen; hala ere, zurea zen, berriro zu, baina orain inola ere ez zu zoriontsua, **ezaxolatia**, niretzat atzemanezina, beste zu bat baizik, niri betiko -hala uste nuen- lotua, nire gorputzari itsatsia, nire biziarekin bat egina. Eduardo Matauko

2 (adizlagun gisa)

Sorbaldak **ezaxolati** altxatzea da lankidearen erantzuna. Sekretua argitara izanak aurrena sumindu egin zuen Selim Aluan, baina handik gutxira **ezaxolati** agertu zen. Harkaitz Cano

-Hori lemanja ezagutu aurretik zen -jaulki zuen Tristanek **ezaxolati**. Aritz Gorrotxategi

"Igual libre uzten gaituzte, besterik gabe", bota zuen **ezaxolati** Dodovek, Geratu egin zen une batez, ateko markoak zedarritzen zuen koadroari begira: jendea zebilen batera eta bestera, **ezaxolati** edo serio, zaila zen ziur jakiten. Karlos Linazasoro

Jaurtigaia Joaquini itzuli, eta paseoan hasi zen gelan barna batetik bestera, areto hartan zegoen guztiarekiko **ezaxolati**. Aritz Gorrotxategi

---

ezaxolatu, ezaxola(tu), ezaxolatzen **1** da *ad* axolagabetu, axola galdu.

Herbertek hogei indio utzi zizkidan, ni lasaitzearren, eta bera erabat **ezaxolatu** zen arazoaz, berarekin zerikusirik ez balu bezala. Joxe Austin Arrieta

Valmontek laguntza eta kontsolamenduak agindu zizkidan, Valmont nitaz **ezaxolatu** da ordea, eta ahantzi nau menturaz. Jon Muñoz

Hain afera garrantzitsu batean ez baita haatik deusez **ezaxolatu** behar, bi abokatu izanen ditut hain zuzen ere nihaurekin. Jon Muñoz

Badu dagoeneko bizpahiru egun Tourvel andreaz **ezaxolatua** naizela. Jon Muñoz

Haien iritziez **ezaxolatu** nintzen. Jon Muñoz

Badu zenbait denbora **ezaxolatua** nintzela gizon zinez atsegin, egungo egunean nire alde dena egiten ari den horrez. Jon Muñoz

Gomendio bakarra eman dit, ez diezazkiodan liburu horiek amari aipa, zeren nire heziketaz sobera **ezaxolatu** dela irudiko bailuke, eta karia horretara haserre bailiteke. Jon Muñoz

Pasarte hori guztia edekiko genukeen, baina uste izan dugu ezen ondorioak agerraraziz gero, ezin **ezaxola** gintezkeela kausak ezagutarazteaz. Jon Muñoz

Teoriaren zamaz **ezaxolaturik**, ez zion ezein baliabideri muzin egiten. Jon Muñoz

2 (era burutua izenondo eta izen gisa)

Zenbait presuna **ezaxolatu** eta begi laburren lagunartea baizik ez dugu izanen, eta kasik bakarrik bagina bezainbat libertate izanen dugu. Jon Muñoz

Moldakaitza, egia erran, ezinago moldakaitza, eta itxurez arras **ezaxolatua**. Haren presentziak behartu gintuelarik elkarri behako **ezaxolatuak** baizik ez igortzera. Jon Muñoz

Sumatzen genuen bai, jende gehienari bost axola zaiola literatura, baina ikasi gabe geunden **ezaxolatuen** tolerantziak muga jakin batzuk dituela. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ezaxolatuki *adlag* axolarik gabe.

Oso bereziak ziren, eta izugarri urduriak: ezin zuten **ezaxolatuki** jasan ezein bidegabekeria edo, areago, haiek bidegabekeriatzat jotzen zuten ezein egintza. Jose Morales

---

ezaxolkeria ik **ezaxolakeria**.

---

ezazol ik **ezaxola**.

---

ezazolkeria ik **ezaxolakeria**.

ezbai *(orobat **ezpai** g.er.)* **1** *iz* zalantza, duda.

Francoren barne-borroka luzea handitu egin zuten kanpoko berri horrekin; areagotu egin zitzaizkion aztoramena, **ezbaia** eta urduritasuna. Xabier Olarra

Haren **ezbaiak** ez du begi-mugimendu azkar bat baino gehiago iraun. Anjel Lertxundi

Egilearen **ezbaiak** nabari zitezkeen, asmo tolesgabe bezain zientifiko hura pausoz pauso nola sortu zen igar zitekeen. Karlos Zabala

Hasierako **ezbaia** gorabehera, esango dut ez zela uste bezain desatsegina izan. Jon Arretxe

Ezbaia sumatu nion Kristinari dela hotzagatik, dela lotsagatik, gorputza berriz ere munduaren begietara ezartzeko nahi eza. Aingeru Epaltza

Bere azken aitorrean agertu zizkidan **ezbaiak** eta barren-borrokak ote zituen mementu hartan gogoan eta bere amorio ezinezko hartaz ari ote zitzaigun. aldi berean: tristea, ene barrengo tristurarekin bat egiten zuelako, berak ere bere zalantzak eta **ezbaiak** izan zituelako sasoin batean. Joan Mari Irigoien

Ezbaiak sortzen dira adimenak honako esakune sintetikoa aitzinatu ahal izateaz. Ibon Uribarri

Hemen, ordea, **ezbaiak** sortzen dituzten eta bere legetasunaren uste osoa ahul dezaketen puntu batzuk aurkitzen dira. Ibon Uribarri

Ezbaiko puntuan zegoen gudua: erasotzaileak gutxi ziren ordurako, baina defendatzaileak urik gabe geratzeko zorian zeuden. Joanes Urkixo

Zalantza: Zerbait hala den edo ez, jakin ezinak sortzen duen arimako **ezbaiko** egoera. Sonia Gonzalez

"Zientzia/teknologia=garapena" ekuazioa **ezbaiko** kontua da, kontrolik gabeko zientziaren eta teknologiaren izaera arriskutsuaren mamua gero eta gardenago ikusten baita. Askoren artean

Nire tesiaren arabera, aldiz, eskuan daukadan gauzaren ezaguera objektiboa da izan; eta nire gogora eramaten dut, eta gogoak esaten dit onargarria den, ala arbuiagarria, ala oraindik **ezbaikoa**. Jenaro Garate

Descartes **ezbaiaren** maisua bezala ezagutzen dugu: intelektualki edozertaz eta guztiaz beti zalantza egin behar da; haatik, ekintzan edo biziera praktikoan ez du aiko-maikorik txikiena onartzen, damua bera belaskeriatzat gaitzesteraino. Joxe Azurmendi

Errebelazioarekin **ezpai** gabe aise egin zitekeena, arrazoimenarekin ez. Joxe Azurmendi

Liderra, **ezbairik** gabe. Berria - Kirola

Originala eta desberdina, **ezbairik** gabe. Berria - Kultura

2 eztabaida.

Bi lesbianaren arteko maitasunezko filmak **ezbaia** piztu du Indian. Berria - Kultura

Almuniak ez du uste benetako **ezbaia** denik: «Hazkundea zigortzetik urrun, aurrekontuen diziplinak eta finantza publikoen sendotasunak, hazkundeari laguntzen dioten baldintza makroekonomikoak ahalbidetzen ditu». Berria - Ekonomia

Gatazka ugari egon dira horren harira, ekoitzi behar den materialaren egokitasunaren inguruan **ezbaia** ugari sortu direlako. Berria - Harian

3 ***ezbaian*** *a)* dudan, zalantzan.

Baroja **ezbaian** dabil bere baitan, eta urte batzuetan ibili zen horrela, nietzschetar ekintza-gizonaren eta begiesle huts gogogabearen artean. Josu Zabaleta

Astilleroren garaipena **ezbaian** jarri dute Aitor Baldak eta Lujanbiok, baina frogarik ez dago. Berria - Kirola

Entzuleak ere **ezbaian** daude, serio segi ala irri egin erabaki ezinik. Iñaki Iñurrieta

Hausnarrean egon zen, zalantzati, **ezbaian**, erabaki bat hartu ezinik. Patxi Zubizarreta

Gizona segundo batzuetan **ezbaian** egon da, baina berehala irribarre mutiria agertu zaio ezpainen ezkerraldean. Patxi Zubizarreta

Une batez **ezbaian** egonda, atea jo du. Urtzi Urrutikoetxea

Ezbaian ibili zen gero, buruan zerabilena erantsi ala ez. Anjel Lertxundi

Biziaren basamortuan noragabeturik eta **ezbaian** ibili ostean, gizonaren begiek bere onera ekarri zutela sentitzen zuen. Patxi Zubizarreta

Garbi utzi nion, irmotasun otxanez, ez nengoela prest Aleph-az **ezbaian** jarduteko. Juan Garzia

Kristinak **ezbaian** iraun zuen pixka batean, eta gero, dendako zokora jo zuen, enplegatuendako gelatxora. Aingeru Epaltza

Maelek pauso bat egin zuen ur ertzera, **ezbaian** geratu, hortz artean zerbait marmarkatu eta azkenean txalupara igo zen. Joanes Urkixo

Automobilerantz abiatu zen, baina giltza sarrailan sartzear **ezbaian** gelditu zen itsasora begira, joan ala bertan gelditu, zer egin ez zekiela. Migel Angel Mintegi

Sistemak errotik moztuko du bere hegemonia edota segurtasuna **ezbaian** jartzen duen oro, iragarri zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Ezbaian utzi nau proposamenak, egiazko **ezbaian** oraingo honetan, baina ez du luze iraun. Jon Arretxe

Nola san Agustinen adimendua bertze liburu batek argitu baitzuen, noiz eta Hiponakoak, etxeko lorategian zalantzan eta **ezbaian** murgildurik zegoela, gogoa noraezean, boz bat aditu baitzuen, erraiten ziola: [...]. Joan Mari Irigoien

Paperekin zein gabe, nork jarriko dit **ezbaian** niri daukadanaren jabetza? Juan Garzia

• *b)* eztabaidan.

Beste emakumeak, aldiz, hau zioen: -Ez! Nire semea dun bizi dena, eta hirea hildakoa! Besteak, berriz: -Ez! Hildakoa dun hirea; bizi dena nirea. Horrela ari ziren **ezbaian**, erregearen aurrean. Elizen arteko biblia

Milaka lagun ari ziren han **ezbaian**, erosten, saltzen, barazkiak labanekin nahastuak, mahai-tapizak era guztietako pipen ondoan. Xabier Aranburu

Zientzia dela eta, **ezbaian** ari dira ea zientziadun multzo osoaren bana-banako atomo guztietan akzidente moduan ote den, ala atomo bakarrean ote datzan; baina iritzi bietatik ondorio absurdoak ateratzen dira. Xabier Kintana

Ezbaian hasten ziren Asiako mugak zein ote ziren eta Giua andreak De Agostini egutegi-atlasa eramaten zion amari, erakusteko, frogak eskuan, oker zegoela. Fernando Rey

Horrela, bada, ama-alabak luzaro aritzen ziren **ezbaian** haragi-plater baten aurrean, eta hauek ibiltzen zituzten aho-mihitan: pobreak eta aberatsak, ezkerrak eta eskuinak, Stalin, apaizak eta Jesus. Fernando Rey

Baiona-Ekialdean, Jean-René EtchegarayUDF-tiarra lehen, bozen % 34-ekin bainan Jerome Aguerresozialixta arras hurbil, % 32 **ezbaian**. Herria

Bozen % 55 **ezbaian** ezaren alde, % 45 baiarentzat, parte hartze frango ona oro har, % 70ekoa. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ezbairik (5); **baina ezbairik gabe** (4); **bat ezbaian** (3); **batez ezbaian** (3); **da ezbairik** (8); **da ezbairik gabe** (8); **du ezbaian** (7); **erdia ezbaian** (3); **ere ezbaian** (7); **eta ezbaiak** (5); **eta ezbaian** (8); **eta ezbairik** (5); **eta ezbairik gabe** (5); **ez du ezbaian** (3); **ezbai gabe** (4); **ezbaian dago** (8); **ezbaian egon** (10); **ezbaian egon zen** (3); **ezbaian gelditu** (3); **ezbaian geratu** (9); **ezbaian geratu zen** (4); **ezbaian ibili** (6); **ezbaian iraun** (3); **ezbaian jarri** (28); **ezbaian jarri dute** (7); **ezbaian jarriz** (3); **ezbaian jartzea** (9); **ezbaian jartzeko** (3); **ezbaian jartzen** (19); **ezbaian zegoen** (3); **ezbairik gabe** (276); **ezbairik gabeko** (7); **ezbairik gabekoa** (3); **ezbairik gabekoa da** (3); **inolako ezbairik** (4); **inolako ezbairik gabe** (4); **lana ezbaian** (5); **maila ezbaian** (4); **maila ezbaian jarri** (4); **miliun ezbaian** (5); **segurtasuna ezbaian** (3); **une batez ezbaian** (3); **zen ezbairik** (8); **zen ezbairik gabe** (8); **zuen ezbairik** (5); **zuen ezbairik gabe** (4)

ezbaika *adlag* eztabaidan.

Batzuetan ikusmena lausotzen zait, gutun hau inoiz amaituko ote dudan **ezbaika** hasten naiz... baina nire indar guztiak bildu nahi ditut, behin baino ez bada ere zuri hitz egiteko: zu, ene maitea, inoiz ezagutu ez nauzun hori. Eduardo Matauko

Ez duzu erraten ari direna entzuten ahal, baina bistan da **ezbaika** ari direla. Xabier Montoia

Ezbaika ihes egin zuen. Itxaro Borda

ezbaikor *adlag* zalantzan, zalantzati.

Alarma urrunen batek jo zuen orduan, militarretik edo desegokitik zerbait bazuena, ez dakit ongi; begiak ireki nituen, **ezbaikor**, segur aski garunetatik azaleratzen zitzaidan izerdiaz blai, eta ikusi nuen, begiratu erdi hauskara erdi urdin batez, esku odolez beteetatik erori zitzaidan liburua, eta poztu ere egin nintzela egia da. Karlos Linazasoro

ezbaiti *adlag* zalantzan, zalantzati.

Hasteko, metodo arazo bat dago, positibismoaren eta metafisikaren artean **ezbaiti**. Joxe Azurmendi

ezbaitsu *izond* zalantzaz betea.

Minutu **ezbaitsu** baten ondoren, ispiluaren aurrean jartzea erabaki zuen. Karlos Linazasoro

ezbaiune *iz* ezbaiko unea.

Ezbaiune baten ondotik, ni ere jaiki nintzen. Aingeru Epaltza

ezbardin ik **ezberdin**.

ezbehar *iz* zorigaitza, gertaera dohakabea. ik **behargabe; istripu**. **1**

Ezbehar, [...]: Sekula faltan izaten ez den behar klasea. Xabier Olarra

Ezbehar hartan, zazpi astronauta hil ziren. Berria - Gaiak

Non eta, suteak, harrapakatzeak, inbasioak, gerra zibilak eta beste **ezbehar** asko pairatu behar izan zituen hiri batean. Askoren artean

Senarrak **ezbehar** bat izan du. Eskarne Mujika

Heriotza iristea ez dela **ezbeharra** izango beretzat, ez diola bizia kenduko, aspaldian baitagokio zain. Imanol Zurutuza

"Zenbat jende harrapatu behar duen **ezbehar** hark, batere errurik ez duena", esan zuen Carmenek, eta orduan ohartu nintzen uharteko kontu hark guztiak bere historiaren oihartzunak zekarzkiola. Iñaki Iñurrieta

Genetikoki oso antzeko diren banakoz osaturiko populazio bat **ezbehar** baten arriskuaren mende legoke, izurritez zein bizi-baldintzen aldaketa tupustekoz. Juan Garzia

Badira edo izan dira hor nonbait **ezbehar** honen kontra asmatutako arinbideak, eta horietako bat da, edo zen, txakil-ardoa (hots, "zakil-ardoa") izeneko usadio beneragarria. Iñaki Segurola

Abangoardian zihoan taldeari ere **ezbeharra** etorri ote zaion. Aingeru Epaltza

Ezbeharra gertatu eta urtebete pasa zenean soineko koloreduna oparitu nahi izan nion, eta negar batean jarri zitzaidan. Bernardo Atxaga

Ezbeharra 12:10ean gertatu zen, zergatik ez dakitela: makina irauli, eta gidaria behean harrapatu zuen. Berria - Ekonomia

Zerbait gordeko bazenute, zoritxarra eta **ezbeharra** ekarriko zenukete israeldarren kanpamentura. Jose Antonio Mujika

Ongi esan duzun bezala, **ezbeharra** oraindik gertatu berria da, eta oroitzapen mingarriak dakarzkit. Migel Angel Mintegi

Batak besteari etxea erreko ziola agintzen zion **ezbeharra** eragin eta inor kalterik gabe gera ez zedin, ez emazteak ez semeak. Pello Lizarralde

Ezbeharrik ez zuten izan bidaia horretan. Karlos Zabala

Entrenatzaileak esana zuen bai egunkarietan eta bai telebistan ere, propio, azken orduko **ezbeharrik** ezean, jokatu egingo nuela. Joan Mari Irigoien

Ez dagoela **ezbeharrik** erabat zorigaiztokoa denik, eta ez dagoela kalterik bete-betekoa izango denik. Joan Mari Lekuona

Zure **ezbeharrean** nork lagundua izango duzu-eta guregan, nahiz banaka nahiz denok batera. Patxi Ezkiaga

Gero, fortunaren **ezbeharrek** eta gerra zibilak familiaren errentak urritu zituzten, eta beste familia aberats batzuk etorri zirelarik, galdu egin zuten garai batean izandako nagusitasun erabateko hura. Koro Navarro

Industrian, %7,98 jaitsi dira **ezbeharrak**: 7.577 izan dira aurten. Berria - Ekonomia

Ezbeharrez bat-batean heriotza gertatzen bada, barre egiten du hark errugabearen zoritxarraz. Elizen arteko biblia

Jainkoak gorde gaitzala horrelako **ezbeharretik**. Jose Morales

Zergatik zaudete hemen egun osoan goseak hiltzen eta hainbeste **ezbehar** jasaten? Askoren artean

Hasten gara pentsatzen zein erraza den, zein erraza izan behar zuen **ezbeharra** edo heriotza saihestea. Joxean Agirre

Ezbeharrak horrexegatik harritzen baikaitu, gertatzeko zuen aukera urriagatik. Joxean Agirre

Gizaki bat minak edo **ezbeharrak** jota ikusten dugu. Jenaro Garate

"Bitxiena da ni ez nintzela nire **ezbeharraz** konturatzen", esan zuen berak. Bernardo Atxaga

Irrazionalak al dira **ezbeharraren** aurrean federa edo sekta baten ideietara jotzen dutenak? Bernardo Atxaga

Alabaina, **ezbeharraren** ondorioz emakume gazte bat hilik zegoen, Errege Kontseiluko kide baten arreba bera. Aingeru Epaltza

Gupidarik gabe baina isilka egiten omen zuen negar, **ezbeharraren** errudun bakarra bere burua ez baizik magalean zuen pistola beltza izan balitz bezala. Joxean Agirre

Greccioko biztanleak **ezbeharra ezbeharraren** gain jasaten ari ziren. Askoren artean

CCOO sindikatuak «enpresaburuaren arduragabekeriari» egotzi dio **ezbeharraren** erantzukizuna, Sondikako Electricidad Martin enpresaren nagusiari, hain zuzen. Berria - Ekonomia

"Horixe" edo "holakoxea" den hori, edo heriotza bera da, edo heriotzaren koloreko **ezbeharreko** edo nahigabezko zeraren bat. Iñaki Segurola

Unnak, berriz, bide gurutze horretan, hautu **ezbeharrekoa** egiten. Pablo Sastre

Horrelaxe egiten dio amonak aurre **ezbeharrari**. Jon Muñoz

Erregek, halere, **ezbeharretik** gorde nahi izan zuen bere alaba maitea. Iban Zaldua

Ezbeharretik inor bizirik ateratzeko itxaropena gero eta murritzagoa da. Berria - Mundua

Bederatzi urte bete orduko, aita **ezbeharrez** galtzea (des)egokitu zitzaigun: 35 urteko gazte osasun betekoa zen. Pello Zabala

Hala dute jaunok izango aditzea haragi, odol eta bortxazko gizagabekeria anitzena: halabeharrezko epaitze, **ezbeharrezko** hilketa, bidegabeko maltzurkeriak eraginiko heriotzarik. Juan Garzia

Hilketa naturalaren aldean, hilketa **ezbeharrezko** edo justiziazkoaren aldean [...] hilketa politak dira. Iñaki Segurola

Eta honek bizitzako gertaera guztietarako balio duela esango nuke, berdin gertaera lazgarri eta dimentsio handiko **ezbeharretarako** edo eta eguneroko miseria, maitemintze eta desmaitemintzeetarako. Harkaitz Cano

2 (pluralean)

Pazientzia eta poz handiagoz eramango lituzkete beren **ezbehar** eta premiak. Askoren artean

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Usadiozko definizioaren arabera, osagai bati (kiebrari) edo merkatu bati (kraxari) dagokion **ezbehar** bakartu bat, jardueren, osagaien jokamoldeen eta merkatuen elkarrekiko txertakuntzaren ondorioz, sistema guztira zabaltzeko dagoen arrisku gisa definitzen da arrisku sistemikoa. Koro Navarro

Nago haatik **ezbehar** arin horrek ez duela segidarik izanen. Jon Muñoz

Ezbehar larria izan zuen, gaixoak. Gotzon Garate

Denak musulmanak dira eta horien artean haur asko ikus liteke, **ezbehar** gorrian, goseak eta erdi larrugorri. Gotzon Garate

Ezbehar tamalgarri bat izan da, eta hipermerkatuko ateak ixteko aginduak hondamendi bihurtu du. Berria - Mundua

Judako errege eta Jerusalemgo bizilagunok, entzun Jaun ahalguztidunaren, Israelgo Jainkoaren, mezua: **Ezbehar** izugarria erakarriko dut toki honen kontra; entzun dezaten

guztiei durundi egingo diete belarriek. Elizen arteko biblia

Ezbehar suntsigarriak jo eta zapalduko zaituzte.

Hona hemen EAEn eta Nafarroan, aurten, gertatu diren **ezbehar** arriskutsuenen guneak. Berria - Euskal Herria

Gertakari itzel hau hegazkinean izandako **ezbehar** tekniko baten ondorioa izan dela ziurtatu dute Egiptoko agintariek, atentatu baten hipotesia hasieratik erabat baztertuta. Berria - Mundua

Arazoa delitugai izango ez bazen ere, iruditzen zitzaidan ez zela gizalegezkoa - **ezbehar** fisiologikoren bat ez bazen behintzat- hoteletako izarak zikintzea. Ramon Saizarbitoria

Horren harira, zentral nuklearrak ixteko eskatu dute ekologistek, «zenbat eta zaharrago izan orduan eta arrisku handiagoa dagoelako **ezbehar** nuklearrak izateko». Berria - Gaiak

Fedegabekeria horrek eragindako **ezbehar** publikoak. Juan Martin Elexpuru

1914an bukatzen zen mendea Mendebaldeko klase ertainaren urrezko aroa izan zen; baina aro berriak ikusia zuen klase hori, bere aldetik, ezbeharrean erortzen, aurrez **ezbehar** berera eramanak zituelarik industri iraultzak industri langileak. Iñaki Mendiguren

Beti gertatzen dira halako **ezbeharrak** sasiko lanean ari zarenean. Koldo Izagirre

Bere jokabide horretatik inolako **ezbeharrik** eta deserosotasunik sortuko ez zaizuelako uste osoan. Jon Alonso

Jendearen builak eta urduritasuna areagotuz zihoazen baina, halere, ez zuen ematen aparteko **ezbeharrik** suertatu zenik. Joxemari Iturralde

Edonolako **ezbehar** nahiz gaitzalditan.

Guraso bat galtzea, Mr Worthing, zoritxarreko **ezbehartzat** har daiteke..., baina biak galtzea axolagabekeria iruditzen zait. Antton Olano

4 (hitz elkartuean lehen osagai gisa)

Ez gozatu zeure anaien **ezbehar**-egunean! Elizen arteko biblia

Han bere mahastiak itzuliko dizkiot, **Ezbehar**-ibarra itxaropen-ate bihurtuko. Elizen arteko biblia

Kalitatezko enplegu egonkorraren alde borrokatuko dutela esan zuten, prekarietatea, behin-behinekotasuna eta **ezbehar** kopurua «seriotasunez landuz. Berria - Ekonomia

Egun batean bi polizia **ezbehar**-ekarle haiek iritsi ziren gurera: Gallinone eta Piangerò. Pello Lizarralde

Orain **ezbehar**-lagunak gara. Matías Múgica

5 (hitz elkartuean bigarren osagai gisa)

Ni ez nintzen han (gure aita ere garai bertsuan hil zen), eta, Gregen familia **ezbeharraren** berria jakin orduko, berarengana joan nintzen. Xabier Olarra

Iaz, 125 langilek galdu zuten bizitza lan **ezbeharrean**, aurreko urtean baino %16 gehiago. Berria - Ekonomia

2004ko zirkulazio **ezbeharretan** 97 pertsona hil dira oraingoz, iaz baino 75 gutxiago. Berria - Euskal Herria

Errepide **ezbeharrek** 520.000 milioi dolarreko gastuak eragiten dituzte munduan, urteko. Berria - Gaiak

6 ***ezbeharrean*** *adlag*

Izan eramanpen handiko **ezbeharrean** eta iraupentsu otoitzean. Elizen arteko biblia

Ezbeharrean, lau behargin hil ziren, lurrun ihesak eragindako zaurien ondorioz. Berria - Gaiak

Gutxienez 81 meatzari hil ziren **ezbeharrean**. Berria - Gaiak

1914an bukatzen zen mendea Mendebaldeko klase ertainaren urrezko aroa izan zen; baina aro berriak ikusia zuen klase hori, bere aldetik, **ezbeharrean** erortzen, aurrez ezbehar berera eramanak zituelarik industri iraultzak industri langileak. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argitu ezbeharraren (3); **azken ezbeharra** (3); **baina ezbehar** (3); **beste ezbehar** (8); **da ezbeharra** (9); **dira ezbeharrak** (4); **dira ezbeharraren** (3); **diren ezbehar** (4); **edozein ezbehar** (4); **eragin zuen ezbeharra** (3); **eta ezbehar** (12); **eta ezbeharra** (7); **eta ezbeharrak** (14); **eta ezbeharraren** (3); **eta ezbeharren** (4); **eta ezbeharretan** (3); **ezbehar asko** (6); **ezbehar asko izan** (3); **ezbehar bat** (15); **ezbehar bat izan** (6); **ezbehar baten** (8); **ezbehar eta** (4); **ezbehar guztiak** (3); **ezbehar handi** (3); **ezbehar hartan** (3); **ezbehar hau** (4); **ezbehar hori** (4); **ezbehar horiek** (4); **ezbehar horren** (3); **ezbehar horretan** (4); **ezbehar hura** (6); **ezbehar izan** (4); **ezbehar kopurua** (3); **ezbehar larri** (5); **ezbehar larria** (7); **ezbehar larria izan** (3); **ezbehar larriena** (3); **ezbehar txiki** (4); **ezbeharra atzo** (4); **ezbeharra ezbeharraren** (3); **ezbeharra ezbeharraren** (3); **ezbeharra ezbeharraren gain** (3); **ezbeharra ezbeharraren gain** (3); **ezbeharra gertatu** (43); **ezbeharra gertatu den** (4); **ezbeharra gertatu eta** (3); **ezbeharra gertatu zen** (19); **ezbeharra gertatu zenean** (5); **ezbeharra gizon** (3); **ezbeharra gizon bat** (3); **ezbeharra goizean** (4); **ezbeharra goizean gertatu** (3); **ezbeharra goizeko** (7); **ezbeharra izan** (12); **ezbeharra izan zuen** (5); **ezbeharra izan zuten** (3); **ezbeharra izandako** (4); **ezbeharra izango** (3); **ezbeharra jazo** (3); **ezbeharra n** (5); **ezbeharra nola** (3); **ezbeharra nola gertatu** (3); **ezbeharra zerk** (3); **ezbeharra zerk eragin** (3); **ezbeharrak eta** (3); **ezbeharrak ez** (4); **ezbeharraren arrazoiak** (4); **ezbeharraren berri** (8); **ezbeharraren gain** (3); **ezbeharraren gain jasaten** (3); **ezbeharraren kausa** (3); **ezbeharraren lekura** (6); **ezbeharraren nondik** (5); **ezbeharraren nondik norakoak** (5); **ezbeharraren ondorioz** (14); **ezbeharrei aurre egiteko** (3); **ezbeharren bat** (44); **ezbeharren bat gerta** (4); **ezbeharren bat gertatu** (3); **ezbeharren bat gertatuko** (5); **ezbeharren bat gertatuz** (4); **ezbeharren bat gertatzen** (10); **ezbeharren bat izan** (3); **ezbeharrik gabe** (3); **eznaturalak eta ezbeharrak** (4); **gelditu ziren ezbeharrak** (3); **gertatu da ezbeharra** (6); **gertatu zen ezbeharra** (42); **hain ezbehar** (3); **hainbeste ezbehar** (3); **halako ezbeharrak** (3); **izan zen ezbeharra** (9); **izan zuten ezbeharra** (5); **izandako ezbeharrean** (4); **izandako ezbeharretan** (4); **jazo zen ezbeharra** (3); **lan ezbeharrak** (3); **lan ezbeharrean** (3); **lan ezbeharretan** (4); **lehen ezbeharra** (7); **nire ezbehar** (3); **zen ezbeharra** (59); **zen ezbeharraren** (6); **zenbat ezbehar** (4); **zeuden ezbeharra** (3); **zion ezbeharra** (3); **ziren ezbeharra** (5); **ziren ezbeharra gertatu** (3); **ziren ezbeharrak** (3); **ziren ezbeharrean** (5); **zuen ezbeharra** (9); **zuen ezbeharraren** (3); **zuten ezbeharra** (5)

---

ezbeharreko *iz* ezbeharra.

Hik beti badaukan **ezbeharrekoren** bat. Hasier Etxeberria

---

ezbehartxo *iz adkor* ezbehar arina.

Azken orduetan **ezbehartxoren** bat edo beste izan dut, baina aparteko ezer ez. Fernando Morillo

---

ezbeltz *izond* beltza ez dena.

Hortik "Ezer ezin da izan aldi berean guztiz **ezbeltza** eta beltza" enuntziatua lor dezakegu, eta horrek egia logikoaren ordezkapen-kasua dirudi. Askoren artean

---

ezberdin *(ETCn **56.766** agerraldi; orobat **ezbardin** g.er.; cf **desberdin** ETCn **51.090** agerraldi)* **1** *izond* beste ezaugarri edo nolakotasun batzuek dituena. ik **desberdin; diferente; bestelako**.

Mikel Basabe Aralarreko kideak azaldu zuenez, «jende **ezberdinaren** arteko elkargune politiko gisa» osatu da Aralar-Zutik koalizioa. Berria - Euskal Herria

A priori formala eta a priori historikoa ez dira ez maila berekoak ez izaera berekoak: gurutzatzen badira, bi dimentsio **ezberdin** betetzen dutelako izango da. Xabier Arregi

"Speech act" bat egiteko sarritan enuntziatu bat baino gehiago behar da: zin-egiteak, erreguak, kontratuak, frogapenak, gehienetan zenbait formula **ezberdin** edo esaldi banandu eskatzen dute. Xabier Arregi

Kolore bakarra erabili dut baina oihal gainean indar edo presio **ezberdina** eginez. Berria - Kultura

Ahotsaren entonazioa adierazteko bide bat da; gorrak ez diren pertsonak ere beren egoeraren arabera tonu **ezberdinean** mintzatzen dira, eta gorrek barne egoera espresio bidez adierazten dugu. Berria - Euskal Herria

2 (adizlagunekin)

Indar honek bi osagai oso **ezberdin** barnebiltzen ditu. Ibon Uribarri

Frantziskoren mundua eta gurea arras **ezberdinak** dira. Askoren artean

Egia da Klararen komunitatearen bizimoldea eta Frantziskoren anaiartearena guztiz **ezberdinak** direla beren gauzatze praktikoari dagokionez. Askoren artean

Kasu hauetan objektu komuna izan arren, dena dela, objektua arrazoimenaren bidez lantzeko era erabat **ezberdina** da kontsiderazio filosofikoan eta matematikoan. Ibon Uribarri

Snowboard-a pistan edo pistatik kanpo egitea zeharo **ezberdina** da. Berria - Euskal Herria

Kualitatiboki nahiz politikoki **ezberdina** dela uste dugu. Berria - Euskal Herria

3 *pl* ezaugarri edo nolakotasun berak ez dituztenak.

Substantzia **ezberdinak** nahasten dira, hala nola, kalamua, alkohola, tabakoa, speeda, kokaina, pilulak. Berria - Euskal Herria

Ateak sendo segurtatua egon behar du burdinazko bi sarraila **ezberdinez**, euskarriz eta morroiloz. Askoren artean

Jendeak, bada, iritzi **ezberdinak** zituen gizon ebanjeliozale hauetaz. Askoren artean

Eraketa diskurtsibo bat berezituko da bertan zabaltzen diren estrategia **ezberdinak** eratzeko sistema definitu ahal bada. komeni da aniztasuna mantentzea, eta gizarte zibileko argitaletxeek Euskal Curriculumari buruzko ikuspegi **ezberdinak** dituzte. Xabier Arregi

Horregatik, ikuspuntu **ezberdinak** har daitezke obra irakurtzean. Askoren artean

Anaiartea klerikoz zein laikoz osatua dago, eta estatus kanoniko **ezberdinak** ez du inolako bereizketarik sortzen bizimoduari dagokionez. Askoren artean

Testuinguru **ezberdinetan** aipatzen du Frantziskok grazia edo Jainkoaren ekimena: elkar maitatzeko grazia (1 Er 9,11), isilik egoteko grazia (1 Er 11,2), lanerako grazia (2 Er 5,1), Ofizioa egiteko grazia (OrG 43). Askoren artean

Errealitate **ezberdin** horien inguruan diagnostiko komuna eraiki eta normalizazioa jorratzeko proposamen zehatzak kaleratuko dituzte. Berria - Euskal Herria

Tradizio **ezberdineko** eskuizkribu gutxi batzuez baliatuz, biak ondorio berdintsuetara iritsi ziren, nahiz eta ez etorri bat zenbait idazkiren benetakotasunaz. Askoren artean

Borroka modu **ezberdinak** izan dira, nahiz eta borroka prozesuen arteko nolabaiteko lotura eta uztarketa ere izan den. Berria - Kultura

Aurten, gainera, eremu **ezberdinetako** jende asko gaude, kolore askotakoak. Berria - Euskal Herria

Zerrenda osatzean irizpide batzuk beteko ditugu: campus **ezberdinetakoak** izatea, lurralde aniztasuna agertzeko; genero kontua, emakumeen eta gizonezkoen arteko oreka lortzeko. Berria - Euskal Herria

Anaiak probintzia **ezberdinetara** bidaltzen zituzten herriari predikatzera eta beste anaia batzuk beren probintzietan bana zitzaten.· Berrogei edo berrogeita hamar ahizpa toki berean bizi direla ere, bat datoz nahi dituzten gauzetan eta bat nahi ez dituztenetan, **ezberdinak** espiritu bat bera bihurtzen direlarik. Askoren artean

4 (predikatu eta adizlagun gisa)

Dena da erlatiboa kolore horietan, zeruaren arabera, orduaren eta eguzkiaren arabera... argia **ezberdina da** beti, eta horrek aldatzen dizu ikusten duzunaren kontrastea. Paddy Rekalde

Amerika eta Afrikako nazionalismoak eta Europa mendebaldekoak **ezberdinak** dira. Berria - Euskal Herria

Hura **ezberdina zen**, ordea. Hasier Etxeberria

-Lehen... Lehen **ezberdina zen**. Jokin Muñoz

Horretan ere **ezberdinak ziren** Virgilio eta Agnès. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arras ezberdina (8); **baina ezberdina** (4); **bakoitza ezberdina** (10); **bakoitza ezberdina da** (6); **beti ezberdin** (4); **bi gauza ezberdin** (7); **da ezberdina** (14); **dena da ezberdina** (5); **egiteko modua ezberdina** (4); **egitura ezberdina** (5); **egoera ezberdin** (7); **egoera ezberdina** (10); **egoera ezberdina da** (8); **egoera oso ezberdina** (6); **era ezberdin** (7); **erabat ezberdina** (37); **erabat ezberdina da** (12); **erabat ezberdina den** (5); **ere ezberdina** (9); **esanahi ezberdina** (4); **eta ezberdin** (4); **eta ezberdina** (7); **ez da ezberdina** (4); **ezberdin asko** (13); **ezberdin bat** (28); **ezberdin batean** (10); **ezberdin baten** (8); **ezberdin batera** (4); **ezberdin bati** (5); **ezberdin batzuk** (6); **ezberdin bi** (7); **ezberdin bizi** (7); **ezberdin dira** (14); **ezberdin edo** (4); **ezberdin eragiten** (5); **ezberdin eta** (25); **ezberdin gisa** (4); **ezberdin guztiak** (7); **ezberdin hauek** (5); **ezberdin horiek** (8); **ezberdin horien** (10); **ezberdin ikusten** (7); **ezberdin izan** (10); **ezberdin izango** (4); **ezberdin pentsatzen** (6); **ezberdina baita** (9); **ezberdina da** (172); **ezberdina da aurten** (4); **ezberdina da eta** (4); **ezberdina dela** (30); **ezberdina delako** (13); **ezberdina den** (24); **ezberdina den zerbait** (6); **ezberdina duela** (4); **ezberdina duen** (4); **ezberdina dute** (4); **ezberdina duten** (7); **ezberdina egin** (6); **ezberdina egiten** (9); **ezberdina eman** (8); **ezberdina ematen** (4); **ezberdina eta** (13); **ezberdina izan** (48); **ezberdina izan da** (9); **ezberdina izan zen** (11); **ezberdina izanen** (5); **ezberdina izango** (41); **ezberdina izango da** (23); **ezberdina izango litzateke** (4); **ezberdina izatea** (5); **ezberdina izaten** (5); **ezberdina zela** (5); **ezberdina zen** (35); **gauza ezberdin** (16); **gauza ezberdina** (5); **guztiak ezberdin** (4); **guztiz ezberdin** (9); **guztiz ezberdina** (24); **guztiz ezberdina da** (8); **hain ezberdin** (5); **hain ezberdina** (8); **hizkuntza ezberdin** (4); **horren ezberdina** (4); **ikuspegi ezberdin** (7); **ikuspegi ezberdina** (8); **izaera ezberdina** (5); **jarrera ezberdina** (6); **kasua ezberdina** (7); **kasua ezberdina da** (5); **letra ezberdin** (4); **maila ezberdina** (4); **modu ezberdin** (7); **modua ezberdina** (5); **mota ezberdin** (8); **mundutik ezberdina** (4); **mundutik ezberdina den** (4); **oso ezberdin** (13); **oso ezberdina** (67); **oso ezberdina da** (30); **oso ezberdina dela** (9); **oso ezberdina izan** (4); **oso ezberdina zen** (6); **partida ezberdina** (4); **pertsona ezberdin** (4); **plano ezberdin** (4); **talde ezberdin** (6); **zeharo ezberdina** (11); **zeharo ezberdina da** (8); **zen ezberdina** (4); **zerbait ezberdina** (17)

adiera ezberdinak (4); **alderdi ezberdinak** (6); **arras ezberdinak** (20); **arras ezberdinak dira** (4); **arrazoi ezberdinak** (10); **arrunt ezberdinak** (10); **arrunt ezberdinak dira** (6); **atal ezberdinak** (5); **aukera ezberdinak** (10); **aurpegi ezberdinak** (5); **baina ezberdinak** (7); **berberak edo ezberdinak** (4); **bide ezberdinak** (9); **dira ezberdinak** (7); **edo ezberdinak** (6); **egoera ezberdinak** (5); **ekimen ezberdinak** (6); **elkarren ezberdinak** (4); **emaitza ezberdinak** (6); **era ezberdinak** (9); **erabat ezberdinak** (17); **erabat ezberdinak dira** (4); **ere ezberdinak** (14); **ere ezberdinak izan** (6); **eredu ezberdinak** (6); **errealitate ezberdinak** (7); **erritmo ezberdinak** (6); **esanahi ezberdinak** (5); **estilo ezberdinak** (5); **estrategia ezberdinak** (5); **eta ezberdinak** (11); **eta ezberdinak dira** (4); **eta iritzi ezberdinak** (5); **ezaugarri ezberdinak** (5); **ezberdinak al** (4); **ezberdinak badira** (8); **ezberdinak badira ere** (4); **ezberdinak baitira** (4); **ezberdinak behar** (7); **ezberdinak bezala** (4); **ezberdinak bizi** (4); **ezberdinak daude** (33); **ezberdinak daudela** (10); **ezberdinak dira** (122); **ezberdinak dira eta** (4); **ezberdinak direla** (48); **ezberdinak direla esan** (4); **ezberdinak direla eta** (4); **ezberdinak direlako** (10); **ezberdinak diren** (36); **ezberdinak diren arren** (6); **ezberdinak diren bi** (4); **ezberdinak direnak** (4); **ezberdinak direnez** (5); **ezberdinak ditu** (8); **ezberdinak dituela** (5); **ezberdinak dituen** (5); **ezberdinak ditugu** (14); **ezberdinak dituzte** (19); **ezberdinak dituztela** (7); **ezberdinak dituzten** (5); **ezberdinak egin** (12); **ezberdinak egiten** (8); **ezberdinak egon** (5); **ezberdinak elkarren** (5); **ezberdinak eman** (5); **ezberdinak ematen** (4); **ezberdinak erabili** (5); **ezberdinak erabiltzen** (4); **ezberdinak erakusten** (4); **ezberdinak ere** (9); **ezberdinak eta** (32); **ezberdinak ez** (12); **ezberdinak ez dira** (4); **ezberdinak hartu** (6); **ezberdinak hartzen** (4); **ezberdinak izan** (87); **ezberdinak izan arren** (14); **ezberdinak izan behar** (12); **ezberdinak izan daitezke** (6); **ezberdinak izan daitezkeen** (4); **ezberdinak izan dira** (5); **ezberdinak izan ziren** (6); **ezberdinak izan zituen** (6); **ezberdinak izango** (17); **ezberdinak izango dira** (7); **ezberdinak izanik** (9); **ezberdinak izatea** (4); **ezberdinak izaten** (10); **ezberdinak kontuan** (4); **ezberdinak plazaratu** (4); **ezberdinak sortzeko** (4); **ezberdinak sortzen** (6); **ezberdinak zirela** (11); **ezberdinak ziren** (9); **ezberdinak zituztela** (4); **ezberdinak zituzten** (7); **fase ezberdinak** (7); **fase ezberdinak izan** (4); **fonemikoki ezberdinak** (7); **forma ezberdinak** (10); **funtzio ezberdinak** (4); **gai ezberdinak** (6); **garai ezberdinak** (4); **gauza ezberdinak** (20); **gauza ezberdinak dira** (5); **guztiak ezberdinak** (9); **guztiak ezberdinak dira** (4); **guztiz ezberdinak** (15); **guztiz ezberdinak dira** (6); **hain ezberdinak** (15); **hizkuntza ezberdinak** (5); **horren ezberdinak** (4); **hots ezberdinak** (5); **ideia ezberdinak** (4); **ikuspegi ezberdinak** (14); **ikuspuntu ezberdinak** (12); **interes ezberdinak** (5); **irakurketa ezberdinak** (4); **iritzi ezberdinak** (49); **iritzi ezberdinak daude** (7); **iritzi ezberdinak plazaratu** (4); **irizpide ezberdinak** (8); **jarrera ezberdinak** (8); **joera ezberdinak** (8); **kontu ezberdinak** (5); **kultura ezberdinak** (6); **maila ezberdinak** (18); **material ezberdinak** (5); **modu ezberdinak** (20); **mota ezberdinak** (25); **ondorio ezberdinak** (4); **osagai ezberdinak** (6); **oso ezberdinak** (81); **oso ezberdinak dira** (18); **oso ezberdinak direla** (8); **oso ezberdinak izan** (15); **partida guztiak ezberdinak** (4); **proba ezberdinak** (4); **proposamen ezberdinak** (5); **sentsibilitate ezberdinak** (4); **ulertzeko modu ezberdinak** (6); **zati ezberdinak** (4); **zeharo ezberdinak** (18); **zeharo ezberdinak dira** (4)

adin ezberdinetako (8); **alde ezberdinetan** (4); **alde ezberdinetara** (4); **alor ezberdinetan** (5); **arlo ezberdinetako** (6); **arlo ezberdinetan** (8); **arrazoi ezberdinengatik** (8); **bide ezberdinetatik** (7); **denbora ezberdinetan** (5); **diskurtsibo ezberdinen** (4); **egitasmo politiko ezberdinen** (4); **egoera ezberdinean** (5); **era ezberdinean** (14); **era ezberdinetan** (14); **eragile ezberdinek** (4); **eragile ezberdinekin** (7); **erakunde ezberdinen** (6); **eremu ezberdinetan** (10); **esparru ezberdinetan** (4); **estilo ezberdinetako** (4); **eta garai ezberdinetan** (4); **ezberdinei buruzko** (6); **ezberdinek eta** (5); **ezberdinek osatzen** (5); **ezberdineko bi** (6); **ezberdinekoak dira** (4); **ezberdinekoak diren** (4); **ezberdinen arabera** (20); **ezberdinen artean** (42); **ezberdinen arteko** (51); **ezberdinen arteko harremanak** (5); **ezberdinen artekoa** (4); **ezberdinen bidez** (9); **ezberdinetako jende** (4); **ezberdinetako jendea** (6); **ezberdinetan banatzen** (4); **ezberdinetan bereizten** (4); **ezberdinetan bizi** (7); **ezberdinetan dauden** (5); **ezberdinetan egin** (5); **ezberdinetan ere** (5); **ezberdinetan eta** (8); **ezberdinetan lan** (5); **ezberdinetan lanean** (6); **ezberdinetan lanean ari** (4); **ezberdinetatik etorritako** (4); **ezberdinez eta** (4); **ezberdinez osaturiko** (4); **forma ezberdinetan** (4); **gai ezberdinez** (4); **garai ezberdinetan** (14); **gauza ezberdinei** (4); **gobernu ezberdinen** (5); **herrialde ezberdinetako** (12); **herrialde ezberdinetan** (4); **hizkuntza ezberdinetako** (6); **hizkuntza ezberdinetan** (5); **izaera ezberdineko** (9); **jatorri ezberdineko** (9); **jatorri ezberdinetako** (6); **kolore ezberdineko** (5); **kolore ezberdinetako** (6); **kultura ezberdinen** (9); **leku ezberdinetan** (12); **leku ezberdinetatik** (4); **lurralde ezberdinetan** (4); **maila ezberdineko** (4); **maila ezberdinetako** (8); **maila ezberdinetan** (16); **modu ezberdinean** (23); **modu ezberdinetan** (13); **modu ezberdinez** (12); **mota ezberdinen** (5); **mota ezberdinetako** (10); **mota ezberdinez** (7); **multzo ezberdinetan** (5); **oso ezberdineko** (4); **oso ezberdinetan** (6); **politiko ezberdinen** (9); **politiko ezberdinetako** (4); **sistema ezberdinen** (4); **talde ezberdinek** (4); **talde ezberdinekin** (5); **talde ezberdinen** (5); **talde ezberdinetako** (5); **toki ezberdinetan** (5)

---

ezberdindu, ezberdin(du), ezberdintzen *(ETCn **1.780** agerraldi; orobat **desbardindu** g.er.)* **1** da/du *ad* desberdindu.

Zertan **ezberdintzen** diren legea eta aholkua. Esteban Antxustegi

Ez dute jakin **ezberdintzen** negoziazio gaiak eta klubaren ekitaldiak. Berria - Kirola

Jatorri izen bat lurralde jakin bateko produktu bat **ezberdintzeko** tresna da», azaldu du Huitzik. Berria - Ekonomia

Judizio singularra *(judicium singulare)* bere barneko baliotasunaren arabera ez ezik, oro har ezagutza den aldetik ere beste ezagutzekin alderatuz duen handitasunaren arabera balioztatzen baldin badut, orduan, hala ere, baliogarritasun orokorreko judizioetatik *(judicia communia)* **ezberdintzen** da. Ibon Uribarri

Figuratiboa denez gero, irudimenik gabe adimenaren bitartez soilik gertatzen den sintesi intelektualetik **ezberdintzen** da. Ibon Uribarri

Azaldu behar dizut, lehenengo eta behin, ezezkoak, nolabait, atributuak direla, eta zertan **ezberdintzen** diren baiezkoetatik. Xabier Kintana

Zein zen elizaren ezaugarria, zibilizaziotik eta gizarte primitibotik **ezberdintzen** zuena, eta hiru gizarte-mota horiek bere baitan hartzen zituen generoan elizak espezie ezberdin eta handiagotzat hartzera eraman gintuena? Iñaki Mendiguren

Gorputz guztiak, haien ustez, gisa bereko atomoz osaturik daude, lehen baiespenean azaldu genuen bezala, eta batzuk besteetatik soilki akzidenteetan **ezberdintzen** dira. Xabier Kintana

Garrantzi handieneko kontua da beren generoa eta jatorriaren arabera besteetatik **ezberdintzen** diren ezagutzak bakartzea. Ibon Uribarri

Esan nahi dut guztiengan txertatu behar dela gure zientzia eta Harena, edo gure boterea eta Harena ez direla **ezberdintzen** zenbatekotasunean, hots, bata handiagoa eta sendoagoa eta bestea txikiagoa eta ahulagoa izatean, edo antzeko aldeengatik. Xabier Kintana

Abertzaleen arteko mugak eta munduak ere **ezberdindu** ditugu. Berria - Harian

Ezberdintzen dituena kolorea da; lehena gorrixka da eta bigarrena, aldiz, zurixka. Berria - Mundua

Adimen hutsaren hutsegiteen eta bertatik sortutako itxurapenen aurka zehazki babestuko litzatekeen irakaspena da, beti adigaiak benetan zein indar ezagutzaileri dagozkion **ezberdintzen** duen heinean. Ibon Uribarri

Honetarako bi adierazpen erabiltzen dira eskuarki, bertan zerbait **ezberdindu** beharko luketenak, bereizkuntza honen oinarria zuzenki ematen ez jakin arren. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean ezberdintzen (3); **batetik ezberdintzen** (3); **ezberdintzen da** (7); **ezberdintzen den** (6); **ezberdintzen dira** (8); **ezberdintzen diren** (6); **ezberdintzen ditu** (4); **ezberdintzen dituena** (3); **ezberdintzen duen** (3); **ezberdintzen duten** (3); **zertan ezberdintzen** (4); **zertan ezberdintzen diren** (3)

---

ezberdingaitz *iz* ezberdintzen zaila dena.

Ezberdingaitzen esakunea benetan aurresuposizio honetan oinarritzen zen: oro harrezko gauza baten adigaian bereizkuntza jakin bat ez bada aurkitzen, orduan gauzetan ere ez dela aurkitzen.honela, noski, **ezberdingaitzen** bere esakunea ezin da ukatu (principium identitatis indiscernibilium); Oro harrezko gauzen adigaiez besterik balio ez duen **ezberdingaitzen** bere oinarri-esakunea sentsuen objektuetara ere hedatu zuela (*mundus phaenomenon*), eta honen bitartez izadiaren ezagutzari hedapen aski handia eman zitzaiola uste izan zuela. Ibon Uribarri

---

ezberdinketa *iz* ezberdintzea, desberdinketa.

Hau bereizkuntzarako aski baina **ezberdinketaren** kontzientziarako aski ez bada, orduan errepresentazioari oraindik ere iluna deitu beharko litzaioke. Ibon Uribarri

---

ezberdintasun 1 *iz* desberdintasuna.

Hortik ageri baita ere zer **ezberdintasun** den ideia zuzenak dituen gizakiaren eta ideia okerrik baizik ez duen gizakiaren artean. Piarres Xarriton

Gizabanako baten edozein afektuk beste baten afektuarekin duen **ezberdintasuna**, bataren esentziak bestearen esentziarekin duen **ezberdintasuna** bezain handia da. Piarres Xarriton

Antzekotasunak **ezberdintasuna** eta bikoiztasuna baititu berekin. Joan Mari Lekuona

Oro harrezko gauzak soilik pentsatzen baditut, orduan, noski, kanpoko hartuemanen **ezberdintasunak** ez du osatzen gauzen **ezberdintasuna** bera. Ibon Uribarri

Nolako **ezberdintasuna** hiruren artean! Xabier Kintana

Handiak dira bakearen eta gerraren arteko **ezberdintasunak**. Jon Alonso

Herriaren eta jendetzaren arteko **ezberdintasuna** ez ezagutzeak sediziorako prestatzen du. Esteban Antxustegi

Gizabanako baten Desirak beste baten Desirarekin duen **ezberdintasuna**, bataren izaerak edo esentziak bestearen esentziarekin duen **ezberdintasuna** bezainbatekoa da. Piarres Xarriton

Ez al gara saiatzen konparatzen, hain zuzen ere, **ezberdintasunak** azaleratzeko? Ana Urkiza

-Berrogei urte daramatzagu politikoki aspertuta -dio Juan Contrerasek-, eta tarte honetan arazoak eta **ezberdintasunak** sakondu eta okertu besterik ez dira egin. Pako Aristi

Bestalde, Gupidaren eta Urrikalmenduaren artean badirudi ez dela neholako **ezberdintasunik**, non ez den, beharbada, Gupida afektu singular bati dagokiola eta Urrikalmendua, berriz, afektu horren ohiturari. Piarres Xarriton

Ez dago inolako **ezberdintasunik**, segitu zuen esaten, burdinaren substantziaren eta gurinarenaren artean, guztia elkarren antzeko atomoz osatua baita. Xabier Kintana

Gurariaren eta Desiraren artean ez da batere **ezberdintasunik**, hauxe ezpada: Desira, eskuarki, gizakiei dagokiela, beren gurariei ohartuak diren aldetik, eta, horregatik, honela defini daitekeela: Desira gurari bat da, bere kontzientzia duena. Piarres Xarriton

Ondo dator kontu hori, ortografiaren eta ahoskeraren arteko **ezberdintasunaren** gaian sakontzeko. Lourdes Oñederra

Ba al da erdigunerik izatearen eta ez izatearen artean, edota bi gauzaren berdintasunaren eta **ezberdintasunaren** artean? Xabier Kintana

Ezberdintasunen gainetiko elkartasuna. Itxaro Borda

Ezberdintasunen gainetiko elkartasuna dela belaunaldi berriko euskaldun gazte askoren ametsa. Piarres Xarriton

Substantzia ezberdin asko balira, elkarretarik bereizi behar lirateke edo atributuen **ezberdintasunaz** edo afekzioen **ezberdintasunaz**. Piarres Xarriton

Behin eta berriro adieraziz deus antzeman ezin daitekeela, ez bada dena hain egiazkoa non faltsutik bereizten den **ezberdintasunezko** ezaugarri edo markatan. Imanol Unzurrunzaga

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Horretan datza bi hirien arteko **ezberdintasun** handiaren muina. Imanol Unzurrunzaga

Aitoren semeek beren janariak jaten dituzte, besteenak bezal-bezalakoak dira, ia-ia, haragia alde batera utzirik, horixe da **ezberdintasun** handiena. Jon Alonso

Ezberdintasun ñimiñoak ezabatuko lirateke. Sonia Gonzalez

Ezberdintasun xume bat bazen, haatik, bertzeen aldean: emakumearen neba ez zen nornahi, Lope Ramirez Bakedanokoa baizik, Andiako markesa eta Errege Kontseiluko kidea. Aingeru Epaltza

Izan ere, sofa baten eta latorrizko bainuontzi baten artean bada **ezberdintasun** garrantzitsu bat: Senatik oso gertu egonagatik, nekez ito zaitezke sofa batean. Harkaitz Cano

Nazioaren -oso handia izan arren- eta gizadiaren artean finitoaren eta infinitoaren, itxiaren eta irekiaren arteko **ezberdintasun** osoa dago. Iñaki Mendiguren

Mugako gerragintzak bi gerra-egileentzat dituen ondorio materialen **ezberdintasun** deigarri hori. Iñaki Mendiguren

Ezberdintasun bakarra solaskidean zetzan, lehen Costa delako bat izaten zen, orain doktore andre bat. Jon Alonso

Enuntziazio-homogeneotasunak (eta heterogeneotasunak) hizkuntza jarraitasunekin (eta aldaketekin) gurutzatzen dira, baita identitate (eta **ezberdintasun**) logikoekin ere. Xabier Arregi

Egoera iragankor honetan, gizarte-hutsunea indibidualismoak betetzen du, hain indibidualismo absolutua ezen gainditu egiten baititu sexuen arteko berezko **ezberdintasunak**. Iñaki Mendiguren

Ageriko **ezberdintasuna** ere badutela esan zidan Senpek, hilda agertu baino lehenago. Hasier Etxeberria

Soldadu hila, soldadu jarria, altuera eta lodierazko **ezberdintasuna**, behin abitua jantzirik, ez dira sumatzen, salbuespenak salbuespen. Jon Alonso

Bidea goiti, beheiti, etengabeko **ezberdintasun** batean. Piarres Aintziart

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaur egun belaunaldien arteko gatazka deitzen dugun hori beharbada mintzaeren arteko **ezberdintasun** kontua da. Jon Alonso

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sexu **ezberdintasunez**. Ana Urkiza

Gertatzen dena da huskeriak besterik ez direnean ez zaizkigula gustu **ezberdintasunak** harrigarri egiten; baina lizunkeriaz ari garenean dena aztoratzen da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Berak hiztegi **ezberdintasunak** alde batera utz ditzake, arlo semantikoen edo antolaera deduktibo ezberdinen gainetik pasa daiteke. gauza baten errealitatea froga baten bidez ezagutzen denean, hor ez dago iritzi **ezberdintasunik**, ez gaitzespenik, ez eta frogatua onartzeko oztoporik ere. Xabier Arregi

Bi delitu hauen arteko probabilitate- **ezberdintasun** txit handiak eskatzen du hauen arauketa oinarri ezberdinekin egitea. Juan Martin Elexpuru

Garaiko merkataritzaren garapenak irabazi gosea sortu baitzuen, eta ondorioz dirua gizarte **ezberdintasun** berriak sortzeko bide baitzen. Askoren artean

Behin-behineko kontratuak dituzten emakumeen proportzioa gizonezkoena baino handiagoa da eta, beraz, aldi baterako kontratuek soldata **ezberdintasuna** sustatzen dute. Berria - Ekonomia

Globalizazio faktorearen ondorioz gertatzen ari diren tentsioak kultur homologazioaren eta kultur **ezberdintasunaren** artean mugitzen dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean dauden ezberdintasunak (3); **artean ezberdintasun** (9); **artean ezberdintasunak** (5); **arteko ezberdintasun** (11); **arteko ezberdintasuna** (31); **arteko ezberdintasuna ez** (3); **arteko ezberdintasunak** (38); **arteko ezberdintasunaren** (4); **arteko ezberdintasunen** (3); **arteko ezberdintasunez** (3); **arteko ezberdintasunik** (4); **bada ezberdintasunik** (4); **baina ezberdintasun** (3); **baina ezberdintasunak** (3); **beste ezberdintasun** (4); **bien arteko ezberdintasunak** (3); **da ezberdintasun** (8); **da ezberdintasuna** (4); **da ezberdintasunik** (3); **dago ezberdintasun** (4); **dago ezberdintasun handirik** (4); **dago ezberdintasunik** (7); **dagoela ezberdintasunik** (4); **dauden ezberdintasunak** (6); **diren ezberdintasunak** (3); **duen ezberdintasuna** (9); **duen ezberdintasuna bezainbatekoa** (3); **edo ezberdintasun** (5); **emakumeen arteko ezberdintasunak** (4); **esentziarekin duen ezberdintasuna** (3); **eta ezberdintasun** (15); **eta ezberdintasuna** (6); **eta ezberdintasunak** (14); **eta ezberdintasunen** (3); **ez da ezberdintasunik** (3); **ez dago ezberdintasun** (4); **ez dago ezberdintasunik** (5); **ez dagoela ezberdintasunik** (4); **ezberdintasun bakarra** (12); **ezberdintasun bat** (7); **ezberdintasun batekin** (3); **ezberdintasun batzuk** (4); **ezberdintasun dago** (7); **ezberdintasun gutxi** (3); **ezberdintasun guztiak** (4); **ezberdintasun handi** (3); **ezberdintasun handia** (5); **ezberdintasun handiak** (9); **ezberdintasun handiak daude** (3); **ezberdintasun handiena** (3); **ezberdintasun handirik** (8); **ezberdintasun hau** (5); **ezberdintasun hori** (6); **ezberdintasun horiek** (7); **ezberdintasun horien** (3); **ezberdintasun nagusia** (3); **ezberdintasun politikoak** (5); **ezberdintasuna agerian** (3); **ezberdintasuna aintzat** (3); **ezberdintasuna aintzat hartu** (3); **ezberdintasuna bezainbatekoa** (3); **ezberdintasuna ere** (3); **ezberdintasuna eta** (5); **ezberdintasuna ez** (5); **ezberdintasuna nabarmena** (3); **ezberdintasuna nabarmena da** (3); **ezberdintasunak alde** (4); **ezberdintasunak alde batera** (4); **ezberdintasunak azpimarratu** (3); **ezberdintasunak daude** (3); **ezberdintasunak daudela** (3); **ezberdintasunak ere** (3); **ezberdintasunak ez** (3); **ezberdintasunak ezberdintasun** (4); **ezberdintasunak ezberdintasun** (4); **ezberdintasunak ezberdintasun** (4); **ezberdintasunaren alde** (5); **ezberdintasunaren aldeko** (3); **ezberdintasunaren arabera** (5); **ezberdintasunaren errespetua** (5); **ezberdintasunari dagokionez** (3); **ezberdintasunean oinarritutako** (3); **ezberdintasunen gainetik** (3); **ezberdintasunen gainetiko** (4); **ezberdintasunen gainetiko elkartasuna** (3); **oren ezberdintasunaren** (3); **oren ezberdintasunaren alde** (3); **zenbait ezberdintasun** (3); **zer ezberdintasun** (9); **zer ezberdintasun dago** (5)

---

ezbezalako *izond* desberdina.

Jainkoaren adimena denaz geroz gauza guztien kausa bakarra, erran nahi da -demonstratu dugun bezala- haien esentziaren nola haien existentziaren kausa, adimen hura gauza guztiak **ezbezalakoa** izan behar da, nahitaez, bai esentziaren aldetik bai existentziaren aldetik. Piarres Xarriton

---

ezbide *iz* bide okerra.

Behin betiko paperik gabe ere, Kristina eta bion arteko harremanen **ezbideak** inoiz baino eskubide gutiago ematen zidan, gainera, horretarako. Aingeru Epaltza

Borges maitemin-sentiberarentzat, munduaren zentzugabekeria eta **ezbide** guztiak baino nahigabe handiagoa zen, agi danean, amodioaren porrota. Juan Garzia

Zalantzazko **ezbide** horretan nengoela, zuk arestian irakurri duzun eskuizkribu hori igorri zidaten Oxford-etik. Juan Garzia

Norbaitek guraso **ezbidezko** izan ditzakeela-eta, beldur bada, zergatik ez gauza bera seme-alaba arimagabekoen kariaz? Andres Urrutia

---

ezbideratu, ezbidera(tu), ezbideratzen du/da *ad* desbideratu.

Hirurogei urteetan zehar lautan baino ez zen Baionara etorri, eta katedraleko dorre karratuei begira pixka bat **ezbideratua** senti zitekeen. Itxaro Borda

---

ezdeus **1** *izond* ezertarako balio ez duena, ezer ez dena, baztergarria. ik **deusez 2**.

Laguntzaile **ezdeusagorik** ez nian aurkituko. Aingeru Epaltza

Errege Beltzak, pieza handia izanik, sekula ez zuen pentsatuko hura guztia ni bezalako peoi **ezdeus** batek asmatua zela. Alberto Ladron Arana

Haien begietan ni peoi ziztrin bat baizik ez nintzen, pieza ttipia, anitzetan trabagarri gertatzen den pieza **ezdeusa**. Alberto Ladron Arana

Behatz **ezdeus** guti-balio bat. Joan Mari Irigoien

Ez da ohiko merkatuak eta kritikak "nobela laburra" izenez izendatzen duten jenero **ezdeus** horretakoa. Iñaki Segurola

Josteta **ezdeus** ba-ten itxura zuen horrek guztiak, baina aise ikasten nuen, eginahalik gabe eta axolarik batere gabe. Aingeru Epaltza

Anitzetan ageri izan zait bizitza zirkunferentzia bat bezala, puntu **ezdeus** batetik puntu **ezdeus** bererat garamatzana. Joan Mari Irigoien

Iparreko Itsasoko portu hartan, unibertsoko puntutxo ñimiño **ezdeus** hartan. Fernando Rey

Gaztainarik gabeko gaztain karloa baino **ezdeusago** eta arantzaz josiago sentitzen nintzela. Joan Mari Irigoien

- **Ezdeus** halakoak, harrapa ezazue mukizu hori! -Bernard Etxeto larderiaka. Aingeru Epaltza

Zinez, jainkoaren eskuetan zara, eta hondar ale bat bezain **ezdeusa** zara harentzat. Xabier Montoia

Maimie deseroso sentitu zen, egia zelako izaki txiki eta sinple hura **ezdeusegia** zela maitagarria izateko. Julen Gabiria

2 (izen gisa)

Bere **ezdeusean**, bere txikian harrapatuta. Iñaki Iñurrieta

3 *iz* ezereza.

Oinazean leporaino murgildua denak badaki **ezdeusaren** bake eztiaren berri. Piarres Aintziart

Ezdeus absolutuaren postura aldatu ninduten orduan. Joxan Elosegi

Jende hauek berek erran zuten Jainkoaren naturatik eta ez **ezdeusetarik** kreatuak zirela arimak. Piarres Xarriton

Gizakiaren arima substantzia bat dela, berenaz egonkorra, gorpuzgabea, hilezkorra, Jainkoak **ezdeusetik** kreatua. Piarres Xarriton

Ezdeusetara etorriak ziren behialako haragi joriak, nire iratzarriko amets bat baino gehiagotako bisitariak. Aingeru Epaltza

Ezdeusaren eta ezerezaren arteko harian zenbiltzan dilindan. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bezain ezdeusa (3); **eta ezdeus** (7); **eta ezdeusa** (3); **eta ezdeusak** (4); **eta ezdeusena** (4); **ezdeus bat** (19); **ezdeus baten** (3); **ezdeus eta** (8); **ezdeus hura** (3); **ezdeusa da** (5); **ezdeusa iritzi** (3); **ezdeusak dira** (5); **gauza ezdeus** (3); **izaki ezdeus** (3); **puntu ezdeus** (3)

---

ezdeuskeria *iz* gauza ezdeus baztergarria. ik **ezerezkeria**.

Ni baino luzeago, eta azkarrago, segidan ikusten nuela diferentzia, eta sentitzen ene **ezdeuskeria**. Piarres Aintziart

Nori axolako zaizkio ni idazten ari naizen **ezdeuskeria** hauek? Xabier Mendiguren Elizegi

Luxuak beretua du oro: nahiz gaitzesten dugun, imitatu beharrean gara ordea, eta **ezdeuskeriak** azkenik beharrezkoa denaz gabetzen gaitu. Jon Muñoz

Eta hainbestenarekin hauxe gertatu zitzaidan, berenaz, eta denboraren buruan haztatuz bestenaz ere, **ezdeuskeria** huts kausi daitekeena, baina kinka hartan jadanik enetzat aski latza eta nahasia zen eguna oraino gehiago laztu eta nahasi zuena. Janbattitt Dirassar

Itzulitakoan, kinkilariaren **ezdeuskeria** osoa aurkitu dut ene mahai gainean: Zaragozako urrezko kutunak, gorriz eta filigranaz, Segoviako oroititzak dituzten galtza-kordak, Bilboko ur bedeinkatu ontzi beirazkoak, [...]. Koldo Izagirre

Egiaren errateko, une haietan inork halako jakingarriak barreiatu izan balitu ere, **ezdeuskeriatzat** hartuko nituzkeen. Aingeru Epaltza

Nor bere **ezdeuskeria**, zirtzileria eta purtzilkeriari lotzen da biziro, eta garrantzirik ez dute aldi berean besteren gauzek. Joxan Elosegi

---

ezdeustakotu, esdeustako(tu), esdeustakotzen du *ad* ezereztu.

Muinak goseak edukiz gauzeztandu daitezke, baina aseak eta gehiegiak ere galaraz eta **ezdeustakotu** ditzake, atergabeko euri-jasak lurra asetzen eta narrasten duen gisan. Iñaki Segurola

---

ezdeustasun *iz* ezdeusa denaren nolakotasuna.

Horrela, ni ere, aita Tomméren erranetan, apal nintzen, baina nola deus ere ez denak zer ere nahi lukeen, hala betetzen nuen neure **ezdeustasuna** loriazko eta banaloriazko amets handi haiekin. Joan Mari Irigoien

Lehen aldia da, dio, senditzen dutala, ene **ezdeustasuna**, Jainkoaren Kreazionearen aitzinean: lurra ene eskuinean zen; ttitta xuri eta urdin bat espazio beltzaren erdian. Herria

Zeren ene gihar-hezurrek ez baitzuten orduan, zin-zinez, ardit bat ere balio, eta zeren falta eta gabezia hura baitzen kalte guztien gaineko kaltea eta gaitzik gaitzena eta galgarriena, bertze guztiak xitzen eta ahanztarazten zituena, eta egozten ninduena itzal galduen desertu fingabekorat eta **ezdeustasunaren** hondar gabeko leizerat.Gure **ezdeustasunaren**, gure txikitasunaren parean ezartzen gaitu, eta horrek, mindu, gogogabetu, arranguratu edo lurra joarazi ordez, askatu eta lasaitu egiten gaitu, ez baitiogu, ez geure buruari, ezta beste inori ere gezur gehiago esan behar. Joan Mari Irigoien

Zapalduaren **ezdeustasuna** baieztatzea esan nahi zuen inolako koalifikaziorik gabeko gizaki gisa, "fedegabe", "barbaro" eta "bertako" deiturak, gutxi-asko iraingarriak izan arren, soilik giza ezaugarri partikular baten edo bestearen ukatze eta haiei zegokien giza eskubide partikular baten edo bestearen errefusatzeak ziren bitartean. Iñaki Mendiguren

---

ezdeustu, ezdeus(tu), ezdeusten da *ad* ezereztu.

Hain nintzen **ezdeustua** gelditu, non haatik afaritara joan behar nuen etxera gida nindezaten utzi nuen. Jon Muñoz

Gizon gajoak, **ezdeusturik**, tentazio ikaragarri hari ezin luzaro eutsiko ziola etsirik, neskameari txilina jo, eta ahots urratu batez agindu zion kentzeko bertatik jaki nardagarri hura. Josu Zabaleta

Zenbat bazter, zenbat giza ale eta jainkotxo inpronunziable izan ote dira Historia pronunziablearen eskuz **ezdeustuak** eta lurraren azaletik erauziak! Iñaki Segurola

Oheratuz batera begiak ixten nituen, eta **ezdeustu** egiten nintzen. harik-eta Lixta guztiak eta jende oro edozein bihurtzen dituen ahazmenaren osin hondogabean **ezdeustu** artio. Josu Zabaleta

---

ezduin 1 *izond* duina ez dena, duintasunik ez duena.

Ezin dut jasan aurpegiera **ezduin** hori, hiltzen ere jakin egin behar da. Karlos Linazasoro

Orain ez zuen gehiago bere eskuzabaltasuna alferrik galdu nahi ni bezalako gizaki **ezduin**, buruarin, gogoeta laburreko batekin. izua nion oinaze fisikoari, gorputzaren sofrimendu lazgarriari, eta bestetik, izua nion akabera **ezduin** bati, desagertze komiko zantarrari. Matías Múgica

Horiek jainko izaeratik hain dagoz urrun, jainkoen artekotzat jotzeko hain dira **ezduin**, ezen pentsatzekoa baita bizi mugidarik eta sentimenik gabea zer den antzemateko gehiago balio dutela. Xabier Amuriza

Posible al da etika hori politikan? Ez: politikoarentzat, erantzukizun soziala duenarentzat, gizatasunaren **ezduina** da jokabide hori. Joxe Azurmendi

Gauza hauek gogotik uxatzen ez badituzu eta jainkoen **ezduin** eta haien bakearen kontrako direnak haiei esleitzetik erabat urruntzen ez bazara, jainkoen ahal sakratuak, zeuk desitxuratuak, maiz moztuko dizu bidea. Xabier Amuriza

Kapitulu honen aurreko zatian hartutako jarrerak erasoak izan ditzake, bai erlijio guztiak asmakeria eta ameskeriatzat hartzen dituztenen aldetik, bai elizak, berauek aitortzen duten fedearekiko, erabat eta beti **ezduintzat** jotzen dituztenen aldetik. Iñaki Mendiguren

2 (adizlagun gisa)

Halako sakrifiziorako jaidurak inpresio handia egin zion Maruri, hain handia non, une batez, adarrari kosk egiten ziola, **ezduin** eta miserable ikusi baitzuen bere burua, urde baten antzera ia. Berria - Kultura

---

ezduintasun *iz* ezduina denaren nolakotasuna.

Eta **ezduintasunaren** gorena: erosi, lapurtu behar izan nuen zeharo modu duinean niri zegokidana. Matías Múgica

---

ezeduki *izond/iz* ez daukana.

Zakurra beti zintzo, beti zure laguna, elizako saguak baino **ezedukiago** bazara ere. Gotzon Garate

Paradoxa litzateke edukitsuak, beren ondasunen jabetzaz gainera, **ezedukien** esker ona erreibindikatzen ikustea. Josu Zabaleta

---

ezegiteko *iz* egin behar ez den gauza.

Haur baten ondorengoa naiz, ume baten umea naiz: huraxe dut neure zinezko arbaso bakartzat hautatzen, aitaren izenean eta arbasoen izenean hainbeste **ezegiteko** egin diren mundu honetan. Iñaki Segurola

Ezegiteko bat baino gehiago egitera behartuta sentitu naiz. Patxi Zubizarreta

Egoera aldrebestu egin zaizue, eta zaigu, eta **ezegiteko** bat baino gehiago egitera behartuta sentitu naiz... -esan dit, begiak itxi, eta irriño bat egiten saiatzearekin batera-. Patxi Zubizarreta

Hark egindako **ezegiteko** hura konponbidean jartzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

- **Ezegitekoak** eginez gero, ezentzutekoak entzungo ditut. Patxi Zubizarreta

---

ezegoki *izond* desegokia.

Nondik dator, gainera, gizakiek ideia **ezegokiak** izatea? Piarres Xarriton

Izpirituaren izaeratik datorren oro, Izpiritua izanik hura aditzeko kausa hurbila, ideia egoki edo **ezegoki** batetik etorri behar da. Piarres Xarriton

Gaizkiaren ezagutza, ezagutza **ezegokia** da. Piarres Xarriton

Aspaldiko garaietako beste lankide batzuk ere halaxe daude: esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko, heziketa **ezegokia** jaso dute. Oskar Arana

Usain **ezegokia** dario [...], lotsaren usaina. Oskar Arana

Ez da ibiltzen, bonba bat jartzea esaterako, momentu honetan politikoki egokia ala **ezegokia** ote den, ondorioak eta erreakzioak zein izanen ote diren, etab. Joxe Azurmendi

Beraz, guztiak, egokiak ala **ezegokiak** [...] elkarri jarraikitzen dira ezinbestekotasun berarekin. Piarres Xarriton

Beraz, gauzen ezagutza ezegokiak barne hartzen duen ezagutzarik ezean datza errakuntza, hots, ideia **ezegoki** eta nahasietan. Piarres Xarriton

Nire irrits **ezegoki** hauek sendatzeko? Oskar Arana

Rosalesek ez dauka zeri heldurik, baina ardurak eskatu beharko litzaizkioke baita kontseilariari ere, parlamentuko batzordean informazioa gordetzeagatik eta kudeaketa **ezegoki** eta irregularra estaltzeagatik. Berria - Kultura

Arbourren adierazpenak «**ezegoki** eta bidegabeak» zirela salatu zuen biharamunean John Boltonek, AEBek NBEn duten enbaxadoreak. Berria - Harian

Giza akatsa eta jokabide **ezegokia** egotzi zaie akusatuei. Berria - Mundua

Aitzineko Proposizioan, gauza singularren propietate komun horietarik erakutsi dugunaz geroz ez dugula ezagutza guztiz **ezegokia** baizik izaten ahal gure Gorputzaren iraupenaz. Piarres Xarriton

Astearte ta ostiralak, biak dira egun **ezegokiak**. Pello Zabala

Orduan, adierazten dugu giza Izpirituak alde batetik, erran nahi baita modu **ezegokian**, hautematen duela gauza hura. Piarres Xarriton

Kexa horiek umekeriaren eta berekoikeria **ezegokiaren** seinaletzat hartu nituen. Oskar Arana

2 (izenlagun gisa)

Eskola-maisu joan zen Austriako mendialdeko urruneko herrixkaren batera, baina **ezegoki** gertatu zen lan hartarako. Oskar Arana

Laster baino lehen, Salem herriko gizarte estu eta puritanoak **ezegoki** eta ezinezkotzat hartu zituen gaztetxoen jokaera haiek eta talde guztia sorginduta zegoela erabaki zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

PSOE alderdi sozialistak Espainiako Legebiltzarrean duen idazkari nagusi Diego Lopez Garridok «erabat **ezegoki**» iritzi zien Menaren adierazpenei. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ezagutza guztiz ezegokia (3); **ezegoki eta** (6); **ezegokia baizik** (3); **ezegokia da** (4); **ezegokia dela** (4); **ezegokiak dituen** (4); **ezegokiak dituen aldetik** (4); **ezegokitzat jo** (3); **guztiz ezegokia** (4); **ideia ezegoki** (4); **ideia ezegoki eta** (3); **ideia ezegokiak** (10); **ideia ezegokiak dituen** (4); **ideia ezegokiek** (3); **modu ezegokian** (4)

---

ezegokiro *adlag* desegokiro, desegoki.

Beste Desirak, aldiz, ez dagozkio Izpirituari, gauzak **ezegokiro** pentsatzen dituen aldetik baizik. Piarres Xarriton

Izan ere, zalduna bere zela-aberea baino goragoa da -hemen "gorago" **ezegokiro** esana da, zalduna bere zela-aberearen espezie berekoa ez delako-, eta, bestalde, hura da berau mugiarazi eta nahi duen bezala ibilarazten duena. Xabier Kintana

---

ezegokitasun *iz* desegokitasuna, egokitasunik eza.

Etxekoek munduarekiko **ezegokitasuna** oparitu zidaten eta nihaurk horri garraztasun zerbait, garraztasun mentala ez errateko, erantsi nion. Itxaro Borda

Ez zien jaramonik egin, hortaz, umea ekartzeko **ezegokitasunari** buruz Napumoceno jaunak emandako argumentuei, eta azkenean esan zion mundu honetan aitarik gabeko ume asko zegoela eta bat gehiago ez zela igarriko. Bego Montorio

---

ezegonkor *izond* egonkorrra ez dena. ik **desegonkor**.

Deus ere ez da finkoa izango, dena **ezegonkorra**, dena konbultsiboa. Joseba Sarrionandia

Kolore aldagarrizko erauzkinak ematen zituzten, polit-bitxiak haiek ere, baina ezinago **ezegonkorrak**. Juan Garzia

Etzanda, eserita edo belauniko, egonkor dago gorputza, baina zutikako jarrera, berez, **ezegonkorra** da ingeniaritzari dagokionez. Irene Aldasoro

Zeren eta, jende xehea aldakorra baita, eta **ezegonkorra**, eta, beraz, zaintzen ez den omena berehala galtzen baita. Piarres Xarriton

Berebiziko ekaitz-giro **ezegonkorra** sortzen da ia egunero. Pello Zabala

Esan dezakegu, beraz, orden honetako erregelak **ezegonkorrak** direla, eta lege sinkronikoaren definizioaren barnean oso-osoki sartzen direla. Isabel Arrigain

Apetaldi suizida hau, harrokeriazko bekatuaren ordaina, aberrazio espirituala da, arima etengabe horretaraxe emana delarik giza nortasunaren funtsa den oreka **ezegonkorrean**. Iñaki Mendiguren

Oreka **ezegonkorrean** berriro, besoak inora heldu gabe gelditu nintzen. Txillardegi

---

ezegonkortasun **1** *iz* egonkortasunik eza. ik **desegonkortasun**.

Sozialisten arabera, eskuineko presidente batek, **ezegonkortasuna** eragingo du Gobernuan. Berria - Mundua

Herrialdearen **ezegonkortasuna** mesedegarri zaie bi herrialdeei baita Txina eta Indiari ere, euren interes estrategikoak mantendu ahal izateko. Berria - Mundua

Ezegonkortasuna eta baztertzea dira, nola Iparraldean hala Hegoaldean, erregulaziorik gabeko integrazio honen fruitu garratzak, keynesianismoaren amaiera markatu zuten merkatuek estatuei hartutako errebantxaren fruituak. Koro Navarro

Praderaren esanek **ezegonkortasuna** eta nahasmena sortzen dutela iritzi zion, «eta taldeak, orain ezer behar badu, egonkortasuna behar du». Berria - Kirola

Behin-behineko kontratazioa erruz ari da zabaltzen (%33 inguru, Espainian), eta **ezegonkortasuna** eta prekaritatea handia da oso. Iñaki Heras

Mehatxuak aipatzean, biblioteka eta agiritegietan dauden plantillen «**ezegonkortasuna**» nabarmentzen da testuan. Berria - Kultura

Ezegonkortasuna eta kaosa. Fernando Morillo

Gizon hau, beraz, gaztetako sugarrez bekatutan izioturik zegoen, eta adinaren **ezegonkortasunak** berak gaztaroko irritsak lotsagabeki asetzera bultzatzen zuen. Askoren artean

Politika mailako egonkortasunak ez du, hizkuntzaren gainean, **ezegonkortasunak** duen eragin berdinik; ez dago haien artean inolako elkarrekikotasunik. Isabel Arrigain

Islamak Txinan mongolen mende bi probintziatan bakarrik lortu zuen ezartzea, eta sekula ez zen izan atzerritar gutxiengo bat baino gehiago, bere egoeraren **ezegonkortasunagatik** behin eta berriro militantziaren susperraldietara bultzatua. Iñaki Mendiguren

Kontinente gorabeheratsuaren **ezegonkortasuna** futbolera ere iristen da. Berria - Kirola

Bere **ezegonkortasunean** helduleku eta erreferentzia finko batzuk izan ditzan. Joan Mari Irigoien

Eguraldi aldakorraren kontu honek, negutik udaberrirako bidean dabilenaren **ezegonkortasunarenak**, hor du martxoan bere presentzia kontinuoa. Pello Zabala

Ez da diseinatu langabeziatik **ezegonkortasunerako** bidea. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Merkatuek pixkanaka hobera egin zuten iaz, eta beraz **ezegonkortasun** txikiagoa egon da. Berria - Ekonomia

Sistemaren beraren oinarrizko ezaugarrietan aurki daitezke **ezegonkortasun** sakonaren erroak. Iñaki Heras

Gerrak, gatazkak, **ezegonkortasun** ekonomiko nahiz politikoa, zapalkuntza eta diskriminazioa dira faktore nagusietako beste batzuk. Berria - Gaiak

Haurdunaldian erretzeak umekiaren **ezegonkortasun** genetikoa eragin dezake. Berria - Gaiak

Honek adierazten du berezko **ezegonkortasun** bat dagoela gure ekonomi sisteman, alde batera edo bestera mugitzeko joera, alegia. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Karibeko herrialde guztietan daude **ezegonkortasun** arazoak. Berria - Harian

Behin-behinekotasuna: gehienezko **ezegonkortasun** portzentaia %7koa izatea. Berria - Ekonomia

Gatazka eta **ezegonkortasun** iturri horietako bat arraza, erlijio edota beste hainbat arrazoiren eraginezko bazterketa izango genuke. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Defentsak erasoari utzi dio lekua, eta, horrekin batera, **ezegonkortasun** puntu bati ere bai. Berria - Kirola

Hortik edo, desoreka, **ezegonkortasun** moduko bat, aldaketa sakonak ekarriko dituena XX. mendeko arteetan. Juan Garzia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Finantza merkatuen globalizazioak ekonomia **ezegonkortasuna** zabaltzeko ahalmena izugarri areagotu du. Iñaki Heras

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta ezegonkortasun (4); **eta ezegonkortasuna** (3); **ezegonkortasuna eta** (6)

---

ezegonkortu, ezegonkor(tu), ezegonkortzen du *ad* egonkortasuna galdu. ik **desegonkortu**.

«Hauteskundeak prestatzeko une kritiko honetan Irak **ezegonkortu** dezake erasoaldiak», azaldu zion Annanek Bushi. Berria - Mundua

Taldea **ezegonkortzeko** zabaldutako zurrumurruak dira. Berria - Kirola

Ekialde Hurbila **ezegonkortzeko** ahalmena duen gatazka da arazo kurdua. Berria - Mundua

Atzerritik egoera **ezegonkortzeko** saioak bertan behera uzteko eskatu zuen. Berria - Mundua

Egoera **ezegonkortzen** saiatzen direnak terroristatzat joko ditugu eta zortzi eta hogeita bost urte bitarteko kartzela zigorra, bizi osorako kartzela zigorra edo heriotza zigorra ezarriko diegu. Berria - Mundua

Konponbidea **ezegonkortzeko** planteatu diren hainbat neurri deuseztatu behar ditu. Berria - Euskal Herria

Sudanek eskualdea **ezegonkortzea** leporatu dio behin eta berriro Eritreari. Berria - Mundua

Ministroaren arabera, espioien helburua herrialdearen egoera politikoa eta soziala «erabat **ezegonkortzea**» da. Berria - Mundua

---

ezegonkortzaile *iz* ezegonkortzen duena.

Jose Dirceu Brasilgo ministro ohiak ohartarazi zuen Mercosur (Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguaik osatutako komunitate ekonomikoa) «arriskuan» dela, Latinoamerikako «eskuin **ezegonkortzailea** erasotzen saiatzen ari zaiolako». Berria - Mundua

---

ezegonkortze *iz* egonkortasuna galtzea. ik **desegonkortze**.

Joan den ostegunean Obiang presidenteak herrialdean diren petrolio enpresei eskatu zien beren langileak kontrola ditzaten, «legez kanpoko immigrazioa eta **ezegonkortze** egoerak eragozteko». Berria - Mundua

---

ezein **1** *izlag* bat ere ez, inongo.

Beharrezkoa zen, orobat, gure literatur tradizioan landu eta ondu zen hitz-ondarearen bilketa zabal eta ahalik eta osoena burutzea, **ezein** garai edo euskalki arbuiatu gabe, **ezein** idazle-talde edo hitz-mota baztertu gabe. Berria - Harian

Gu ez goaz **ezein** abertzaleren aurka. Berria - Mundua

Ezein kudeatzailek, **ezein** fundaziok, **ezein** ikerkuntza-ministrok ez zituen bide horretan abiarazi. Juan Garzia

Beste **ezein** hiritan ez ziren hain gora iritsi arteak. Iñaki Iñurrieta

Ez dut ikusten **ezein** leiho. Juan Garzia

Ezein liburu ez da era berean eskailera bat, nahiz badagoen libururik posibilitate hori eztabaidatu eta ukatu eta frogatzen duenik, bai eta eskailera baten egitura itxuratzen duenik ere. Juan Garzia

Honek **ezein** estatuk permititzerik ez daukan indisziplina zekarren: austeritatea estatuen autoarautzeen zati bat da. Xabier Amuriza

Hara, emango dizkizut, bada, jakinduria eta adimena eta, gainera, zure aurretik **ezein** erregek izan ez dituen eta zure ondoren ere izango ez dituen adinako aberastasunak, ondasunak eta ospea emango dizkizut. Elizen arteko biblia

Ez zuela hondamendiaren tamainaz ohartu zen **ezein** adituren gidaritzarik jaso. Berria - Mundua

Ezein magistratuk (gizartearen parte den aldetik) ezingo du, zuzen jokatzen badu, zigorrik ezarri bere gizarteko beste kide baten kontra. Juan Martin Elexpuru

Costa, gauzak diren bezala, izorratuta dago, beste **ezein** hitzek ez du bere izpiritua nola dagoen hobeki adierazten. Jon Alonso

Ez dute gehiago ez goserik ez egarririk pairatuko, eta eguzkiak edo **ezein** berokeriak ez ditu trabatuko. Itxaro Borda

Ez herrik ez bestelako **ezein** giza seinalek ez zuen hausten lur elementalaren bakea. Juan Garzia

«Ez dago **ezein** negoziazio prozesurik», erantsi zuen. Berria - Harian

Hegazkina, niretzat, hegazkina da, nik ez dakusat hor desagerturiko **ezein** txori-klaserik, motorra matxuratu zaion Super-Constellation bat baizik. Joxe Austin Arrieta

Finisterrekoa igaro izan ez banu, ez nukeen sekula esango **ezein** ontzik karraka haren moduko dantzarik egin zezakeenik. Edorta Jimenez

Baina, gertagaitza noizbait gertatzen denean, ez dago horretan inolako goragotasunik edo antzekorik, ez miraririk, ez beste **ezein** ixtoriorik, ezjakinek horrelakoak hain atsegin dituzten arren. Joxe Austin Arrieta

Ez zuen **ezein** tximistak jo, ostera, halakorik falta ez zen arren; zapietan bilduriko haizearen ostikoak eraitsi zuen masta hura. Edorta Jimenez

Ez al Tusik, ez al Khaiamek, ez beste **ezein** arabiar matematikarik ez zuen lortu 5. postulatua frogatzea. Jon Muñoz

Esnatzean, **ezein** burutapeni, ez honelakori ez halakori tokirik eman gabe, agudo erreparatu behar dut zer kontenplatu behar dudan gauerdiko lehen jardunean. Patxi Altuna

Ezein ahakar baino lazgarriagoa zuen begirada. Anjel Lertxundi

Ezein ingeniari, kimikari edo materialen arloko zientzialarik inoiz asmatuko ez lukeen moduan eginda dago betekizun zail horiek betetzen dituen materiala. Irene Aldasoro

Ez dut inoiz esango **ezein** adimen gaiztoa izan daitekeenik. Imanol Unzurrunzaga

Lehenik, **ezein** gorputzetan ez daiteke sentimenik izan, biziduna bera sortua izan aurretik. Xabier Amuriza

Beste **ezein** hiritan ez ziren hain gora iritsi arteak. Iñaki Iñurrieta

Gizona **ezein** alorretan ez da betegina, ez ongian, ez gaizkian ere. Jon Muñoz

Arrazoi osoz esan ohi da, beraz, **ezein** diziplinatan ezjakitun direnen arimak eta eskolatu gabekoak baraurik eta gose antzean daudela. Imanol Unzurrunzaga

Kategoriaren erabilera huts soila ahalgarria da bai, h[au] d[a], kontraesanik gabekoa da, baina ez du **ezein** baliotasun objektiborik, bere bitartez objektuaren batasuna lortuko lukeen **ezein** begiespeni ez baitzaio lotzen; izan ere, kategoria pentsatzearen funtzio soila da eta bere eskutik ez zait **ezein** objekturik ematen, aitzitik, begiespenean eman ahal zaidana pentsatzen dut. Ibon Uribarri

Bilduma horretan ez zela **ezein** gutunik huts larririk gaberik. Jon Muñoz

Baldin eta zenbaki batek karratu baten aldea adierazten badu, **ezein** zenbakik ezingo du haren diagonala adierazi. Herria

Fisika klasikoaren **ezein** ekuaziok ez dauka denbora-parametrorik. Juan Garzia

Agerpenen argipenean azterketaren alorra munduaren **ezein** mugak edo hasierak moztuko ez balu bezala aritu behar badugu. Ibon Uribarri

Judu eta musulmanok, izan ere, **ezespainolak** dira; baina Averroes eta Maimonides, filosofo espainolak; Abd ar-Rahman eta Boabdil erregeak ez, Kordoba eta Granadako artea bai. Joxe Azurmendi

Mairuak, odol inpuro **ezespainolekoak**; aristokrazia, odol godo espainol garbikoa.Tradizo espainol jatorrera itzultzeko erretolikarekin ari ziren erromantiko, krausista, Menéndez Pelayo, Unamuno eta enparau guztien aurka [...] Ortega-k zirt-zart tradizio bedeinkatu hori guztia **ezespainola** deklaratzen du. Joxe Azurmendi

---

ezespen *iz* ezestea.

Hiru puntu bereizi beharra daukagu: (i) judizioei -horietan esaten baita baiespena edo **ezespena**, hots, ezagutza-, alegia, horien motei (analitikoak, sintetikoak, sintetikoak a priori, eta kategorien dedukziorako judizioen taula) ez diegu jaramonik egingo hemen. Askoren artean

Gure baiespenetan bezainbat **ezespenetan**, edo gure ezbaietan soil, gure egungo kulturan (hots, inkulturan, Finkielkrauten ebazpenean) Herder begieran dago beti. Joxe Azurmendi

Une horretantxe izendatu behar ditu bere alde mintzo daitezkeen pertsona guztiak; bere **ezespenak** ez dira onartuko adierazpenak irakurri ondoren. Juan Martin Elexpuru

---

ezeste *iz* arbuiatzea, ezertan ez hartzea. ik **ezespen**.

Aldeetako inork eskatu gabe agiri bat irakurtzeko aginduta nahita Etxeberria auzipetuaren aurka jokatu dutela argudiatu du Goirizelaiak, eta gaur goizean aurkeztuko dute **ezestea**, abokatu guztiek izenpetuta. Berria - Harian

Balioak dira, giza egintza espiritual ororen barneeneko elementuak, errealitatearen aurrean baieste zein **ezeste** (intelektual, sentimental, estetiko) oro arautzen dutenak. Joxe Azurmendi

---

ezeta ik **ezta**.

---

ezetasun ik **hezetasun**.

---

ezetsi, ezets(i), ezesten du *ad* arbuiatu; ukatu; ezertan ez hartu.

Enpresaren asmoa **ezetsi** dute TRWko langileek. Berria - Ekonomia

Terminologia asko zaindu zenuten, ETAren atentatuak salatzeko kontu horretan: gaitzetsi beharrean, **ezetsi**. Berria - Euskal Herria

Blairrek ozen dio, aldiz, hori ez dela gertatuko, atxikitzea lortu duen beto eskubideari esker, eta kasu honetan gehitu du inkestek diotela herritarren %41ek onartuko luketela Konstituzioa eta %35ek, aldiz, **ezetsiko**. Berria - Mundua

A-63 autobidea 2x3 bihurtzea **ezetsi** ondoren, zortzi proposamen egin ditu, aterabide hitzartua aurkitzeko. Berria - Euskal Herria

UPNk eta CDNk apirilaren 11ko istiluak **ezetsi** dituzte. Berria - Ekonomia

Hamaseko buruzagiak **ezetsi** zuen segurtasun arloaren arduraz jabetzeko xedea duenik: «Inoiz ez dugu izan segurtasunaz arduratzeko asmorik; erakunde palestinar guztien arteko elkarlana eta adiskidetza bilatzen dugu». Berria - Mundua

«Arazoak ditugu AEBekin, baina ez dizkiogu hauek Iraki jasanaraziko»; hitz hauekin, Washingtonen akusazioak **ezetsi** nahi zituen Khatamik, hots, Teheranek sustatu duela Al Sadren jarraitzaileen matxinada. Berria - Mundua

Berrespen honetan **ezetsi** edo aldatu egiten badituzte beren lehen adierazpenak, lekuko faltsutzat jo eta zigortu egiten dituzte. Juan Martin Elexpuru

Horregatik, zure hautsezko haragian ezarritako kristau jakinduriaren froga hau ez dezake egiaz jainkozale den inork arbuiatu, ez egiaz fededun den inork **ezetsi**. Askoren artean

-Hori oso kasu berezia da - **ezetsi** zuen On Camillok. Koldo Biguri

Zergatik emakumezkoaren obran dagoen ikuspegi feminista **ezetsi** nahi du emakumeak? Ana Urkiza

Emakumearen ahotsak adeitasunez **ezetsi** du ekintza. Xabier Paya

Belarrietara iristen ez den ahotson zatia, aurrera alferrik jorik, auretan ezabaturik hiltzen da; beste zatiak, gauza gogorren kontra jo eta **ezetsia** izanik, hotsa itzultzen eta batzuetan engainatu egiten du, hitz tankeran. Xabier Amuriza

Gainera, hutsunean zehar asko dabiltza deslai, gauzen batasunetatik **ezetsiak** izan zirenak edo, hartuak izanik ere, euren mugimenduak batu ezin izan zituztenak. Xabier Amuriza

Ikusiko duzu nola hainbat, kolpe ikusgaitzek astindurik, norabidez aldatzen eta **ezetsirik** itzultzen diren, behin honantz, behin harantz, alde guztietarantz. Xabier Amuriza

Behinola gure Jaunak bere jainkozko musua eskaini zion lagun bati, eta gizakiaren izpirituak erantzun zion: egia-egiaz, gure Jauna, **ezesten** dut hori, zeren eta zure musuaren alaitasunak nire onetatik aterako bainau, eta gehiago ez natzaizu izango baliagarri. Joan Mari Lekuona

Azalpen horretan guztian, ordea, baiesten denari bezain adi (ezagutza objektiboari), **ezesten** denari behar zaio egon (ezagutu ezin izango denari): zurrumurrua zebilen Juan de Panonia, Jainkoaren zazpigarren atributuari buruzko tratatu bat zela medio ospez gailendu zen jakintsua, prest zegoela halako heresia malapartatua **ezestera**. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta ezetsi (3); **ezetsi du** (9); **ezetsi egin** (4); **ezetsi zuen** (3)

---

ezetz *adlag* **1** *ez* adizlagunaren zeharkako era.

Gizon gehienei gertatzen zaien bezala, gehienak bizi eta hiltzen baitira errugabetasunean, baietz edo **ezetz** besteren kontura esaten, baina kontuak norberarenak bailiran ordainduz. Berria - Kultura

A, **ezetz** uste dut. Jon Alonso

Ez, segur **ezetz**. Joan Mari Irigoien

Niri **ezetz** iruditzen zitzaidan, tartekotzat jotzen nindutela, eta Adrianekin, kasu, nahiz zerrategiko jabearen semea izan, beste modu batera jokatzen zutela; baina ez nengoen ziur. Bernardo Atxaga

"Ez zizun esan, hortaz." Ostera ere **ezetz** egin nion. Bernardo Atxaga

Ezetz esan nion, erabat lasai zegoela, bazkaldu ere ondo egin zuela. Bernardo Atxaga

Aracil doktoreak **ezetz** esaten zion denari. Josu Zabaleta

Nola esan **ezetz** eskura jarritako abaguneari? Hasier Etxeberria

ERC Esquerra Republicana de Catalunyak, baina, ez du gustuko orain arte hitzartutako testua, eta beraz, proposamenari **ezetz** esatea erabaki zuen atzo ERCko Kontseilu Nazionalak. Berria - Mundua

Politika egiteko modu bati **ezetz** esan zaio; **ezetz** inboluzio demokratikoari, **ezetz** askatasunen murrizteari, **ezetz** indarkeriaren erabilera politikoari, gezurrari, manipulazioari eta elkarrizketa ukatzeari. Berria - Euskal Herria

Botanikotik irtetean -Sabatinirena da eraikina-, ea zerbait hartu nahi zuen esan nion, eta berak **ezetz** erantzun zidan, eta euskaldunok jan-edanean pentsatzen geniharduela beti. Iban Zaldua

Baina Marotok jaramonik ez eskabideari, eta **ezetz** erantzun. Txillardegi

Tomek buruari eragin zion **ezetz** adieraziz, eta haren aurpegiera goibelarengatik ohartu nintzen itxaropen alferreko batek eragin zuela nire iruzkin hura. Oskar Arana

Irakasleak **ezetz** erantzun zion, nahiago zuela atarian gelditu. Bernardo Atxaga

Aitari deitu -Kalifornian bizi zen-, eta mailegu bat eskatzeko aukeraz ere hitz egin zuten, baina **ezetz** erabaki zuten azkenean. Oskar Arana

Aurrera, **ezetz** ausartu: jo nazazu, erakuts ezazu behingoagatik adore pixka bat. Anjel Lertxundi

Mary Annek **ezetz** egin zuen buruaz: "Nik ez nuke esango nire aita artista denik, ezta gutxiagorik ere." "Bazekiat **ezetz**, Joseba, baina proban jarri nahi nian", esan zion. Bernardo Atxaga

Arantxak **ezetz** zioen buruarekin. Fernando Morillo

Hark kondena handienekoek ez baizik denbora gehiena generamanok behar genuela hanka egin; honek **ezetz**, eri zeuden lagunek zeukatela lehentasuna. Koldo Izagirre

Basoik **ezetz**, bazela beste gairik, beste biderik, beste gogoeta egokiagorik egiteko sartu aitzin. Michel Oronoz

Baina hire osabak, orduan, bat-batean, **ezetz** erran zioan, **ezetz** eta **ezetz**, hura ez zela posible. Joan Mari Irigoien

Hortakoa den auzitegiak alta argi eta garbi jakin-arazi du bere erabakia: **ezetz** eta **ezetz**, Le Pen ez dela hautagai izaiten ahal Marsellako alde hortan! Herria

Raffarin eta Euskal-departamendua: **ezetz** eta **ezetz**. Herria

Hago hor **ezetz** eta **ezetz** maila berean beti, ez hazi eta ez irabazi, paretako irudia dirudinala! Patxi Ezkiaga

Eta nik **ezetz** eta **ezetz**, eta uste dut malkoren bat ere isuri zitzaidala, masailetan beheiti. Joan Mari Irigoien

Ezetz eta **ezetz**, berean setatu zitzaidan irakasle anderea. Joxerra Garzia

Baina hark **ezetz**.

Seguru zegoen **ezetz**. Bernardo Atxaga

Nik buruarekin **ezetz**. Michel Oronoz

Bikotea zirela uste nuen hasieran, esan dizut lehen ere, baina berehala konturatu nintzen **ezetz**, bi haien artean ez zegoela ezer. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezetz Artolak, berak ikusi zuela. Xabier Montoia

Ezetz, mutil batengatik etorria zela, haren esperoan zegoela. Koldo Izagirre

Ezetz berriz ere, ez ziotela edaririk emango. Pello Salaburu

- **Ezetz** ba, inori ez dizkiodala saldu. Juan Garzia

Obispoa **ezetz**, artzapezpikua, eta euskalduna gainera. Inazio Mujika Iraola

Ezetz esan nion neure buruari. Ramon Saizarbitoria

Ez nuke **ezetz** esango. Harkaitz Cano

Gizonek ulertu behar dute, emakumeek **ezetz** esateko eskubidea dutela; Era berean, emakumeek jakin behar dute **ezetz** esateko eskubidea dutela. Berria - Gaiak

Agure bat izan balitz, **ezetz** egingo nuke apustu, interesgarria da baieztatzea norberaren ontasuna. Jon Alonso

Abila izan da beti horrelako bitxikeria txinpartatsuak aurkitzen, baina **ezetz** egingo nuke. Anjel Lertxundi

- **Ezetz** iraun hogei minutu! Koldo Izagirre

Ezetz jakin azkeneko berria. Joseba Sarrionandia

- **Ezetz** asmatu norekin egon nintzen bart? -galdetu zuen Willemek jostari. Anjel Lertxundi

Nola **ezetz** ? Elena Touyarou

Geure jendea ari da Lan Ministerioko jendearekin hitz egiten, batzarrak egiten, eta ez dugu ikusten erantzun argirik, ez baietz, ez **ezetz** , eta horixe da txarrena. Berria - Ekonomia

Nik baietz-hik **ezetz** hartan, bigorrar haietariko bat lurrean zerraldo gelditu zen, aitatxiren mailuak sudurra hautsirik. Aingeru Epaltza

Nik baietz-hik **ezetz** hartan, bigorrar haietariko bat lurrean zerraldo gelditu zen, aitatxiren mailuak sudurra hautsirik. Aingeru Epaltza

• **2** *iz* ezezkoa.

- **Ezetza ezetza** da. Koro Navarro

Ezetza ordainez. Herria

Haren aurpegiak erakutsi zigun gaitzitu zitzaiola gure **ezetza** . Piarres Aintziart

Ezetza berritu nion. Militanteei kasu egin, eta **ezetza** eskatuko du ERCk galdeketan. Berria - Mundua

Madrazok Kontseilu Politikoan azaldu zuenez, Legebiltzarrean Ibarretxe Planari buruz egingo den bozketan abstentzioaren aldeko hautua egitea **«ezetza** bozkatzea bezala da». Berria - Euskal Herria

Hirietan baietza atera dela esaten duenak hirietako banlieueetan **ezetza** nagusitu dela ezkutatzen du, nahita. Iñigo Aranbarri

Estatuen Europarako Konstituzioa izanik, Euskal Herrian **ezetza** nagusitzea posible ote? Berria - Euskal Herria

«Historian zehar, **ezetzak** ahalbidetu ditu aitzinamenduak», dio Amarok. Berria - Euskal Herria

Lur honetako erresuma **ezetza** baietzaren zerbitzuan jartzeko talentua dutenena da, edo eta, **ezetz** baten egileak izan direnean, arin bai arin **ezetz** hura ezabatu eta baietz bat jartzen dutenena. Jon Alonso

%70eko parte-hartzearekin, **ezetzak** botoen %54,87 lortu zituen, eta baietzak, aldiz, %45,13 eta horrek hankaz gora jarri ditu haien aurreikuspenak. Berria - Harian

Nire **ezetzaren** berri lehenago eman nahi nizun, baina Pichardon jaunak ez dit utzi. Jakinminez nago jakiteko nola konpondu duzun gurutzatuen **ezetzaren** arazoa. Joxean Agirre

Ezetzaren aldeko agertu zen Karlos, eta Jorgek "bai" bozkatuko zuela iragarri zion. Iban Zaldua

Baietzaren eta **ezetzaren** artean ibili nintzen garai hartan igeri. Hasier Etxeberria

-Ez - **ezetza** biribila izan zen-. Migel Angel Mintegi

Gaizkia egiteko zientziari eta teknologiari **ezetza** eman behar zaie. Berria - Gaiak

Basauriko Udalak **ezetza** eman dio Bilbondo merkataritza zentroa handitzeari. Berria - Ekonomia

-Nor naiz ni neure jaunari **ezetza** emateko? Elizen arteko biblia

Gehiengo sindikalaren **ezetza** jaso du Enplegu Batzordeak; ELA eta LAB sindikatuek gogor kritikatu dute Kontseilua eta ez dutela parte hartuko iragarri. Berria - Ekonomia

Orain arte eginiko bilerei dagokionez, ez zuen iragarpenik egin nahi izan, baina nabarmendu zuen bilera guztietan ez dutela **ezetz** biribilik jaso. Berria - Euskal Herria

Ez baitira oraindik hogeita lau ordu igaro gurutzatuek beren **ezetz** lotsagarria adierazi zuten minutu zorigaiztoko hartatik. Jon Alonso

Baina santuak erabateko **ezetza** eman zion, hura deabruaren trikimailua zela eta. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akordioari ezetz (5); **ala ezetz** (6); **badakigu ezetz** (5); **badakizu ezetz** (10); **baietz ala ezetz** (6); **baietz edo ezetz** (18); **baietz eta ezetz** (10); **baina ezetz** (48); **baina ezetz esan** (10); **baina nik ezetz** (8); **batek ezetz** (5); **bati ezetz** (6); **berak ezetz** (17); **berriz ezetz** (5); **besteak ezetz** (7); **buruarekin ezetz** (13); **buruaz ezetz** (20); **buruaz ezetz egin** (7); **buruaz ezetz esan** (5); **da ezetz** (10); **dago ezetz** (5); **diot ezetz** (5); **diote ezetz** (8); **dizut ezetz** (6); **du ezetz** (12); **dugu ezetz** (9); **dut ezetz** (25); **dute ezetz** (9); **edo ezetz** (20); **ek ezetz** (5); **ere ezetz** (18); **esan ezetz** (15); **eta berak ezetz** (5); **eta ezetz** (189); **eta ezetz erantzun** (21); **eta ezetz erran** (7); **eta ezetz esan** (34); **eta ezetz esaten** (9); **eta hark ezetz** (7); **eta nik ezetz** (10); **europako konstituzioari ezetz** (11); **ez esan ezetz** (6); **ez ezetz** (6); **ez nuen ezetz** (5)

ezetz adierazi (7); **ezetz asmatu** (36); **ezetz asmatu nor** (5); **ezetz asmatu zer** (5); **ezetz ausartu** (5); **ezetz ba** (22); **ezetz bozkatu** (7); **ezetz dio** (25); **ezetz egin** (72); **ezetz egin eta** (5); **ezetz egin nion** (13); **ezetz egin zuen** (36); **ezetz eginez** (5); **ezetz egiten** (13); **ezetz erabaki** (10); **ezetz erantzun** (144); **ezetz erantzun dio** (5); **ezetz erantzun nion** (15); **ezetz erantzun zidan** (8); **ezetz erantzun zion** (23); **ezetz erantzun zuen** (12); **ezetz erantzun zuten** (5); **ezetz erraiten** (12); **ezetz erran** (41); **ezetz erran zion** (6); **ezetz erranen** (10); **ezetz errateko** (6); **ezetz erraten** (5); **ezetz esan** (315); **ezetz esan behar** (12); **ezetz esan dio** (11); **ezetz esan diot** (8); **ezetz esan diote** (10); **ezetz esan dizut** (5); **ezetz esan du** (6); **ezetz esan genion** (9); **ezetz esan nien** (7); **ezetz esan nion** (49); **ezetz esan zidan** (9); **ezetz esan zien** (6); **ezetz esan zion** (27); **ezetz esan zioten** (8); **ezetz esan zuen** (20); **ezetz esanen** (6); **ezetz esanez** (6); **ezetz esango** (54); **ezetz esango nuke** (11); **ezetz esatea** (36); **ezetz esateko** (62); **ezetz esaten** (97); **ezetz esaten badu** (5); **ezetz esatera** (6); **ezetz eta** (77); **ezetz eta ezetz** (66); **ezetz ihardetsi** (5); **ezetz jakin** (8); **ezetz lepoa jarri** (6); **ezetz nik** (7); **ezetz uste** (22); **ezetz uste dut** (10); **ezetz zioen** (8)

ezin ezetz (5); **ezin ezetz esan** (5); **gero ezetz** (7); **guk ezetz** (10); **haiek ezetz** (7); **hark ezetz** (17); **honek ezetz** (10); **horixe ezetz** (12); **horri ezetz** (8); **jakina ezetz** (17); **konstituzioari ezetz** (19); **konstituzioari ezetz esateko** (8); **neskak ezetz** (5); **nik ezetz** (58); **nik ezetz esan** (14); **nik ezetz esango** (6); **nion ezetz** (10); **nola esan ezetz** (5); **nola ezetz** (21); **nuen ezetz** (10); **nuke ezetz** (5); **proposamenari ezetz** (9); **seguru ezetz** (6); **uste dut ezetz** (16); **zion ezetz** (10); **zuen ezetz** (18)

baietzik ez ezetzik (6); **dizut ezetzik** (6); **dut ezetzik** (5); **eta ezetza** (5); **eta ezetzaren** (5); **europako konstituzioari ezetza** (5); **ez dizut ezetzik** (6); **ez dut ezetzik** (5); **ez ezetzik** (8); **ez zuen ezetzik** (12); **ezetza eman** (41); **ezetza eman dio** (6); **ezetza eman zion** (6); **ezetza eman zioten** (5); **ezetza emango** (5); **ezetza ematea** (8); **ezetza emateko** (8); **ezetza ematen** (8); **ezetza jaso** (5); **ezetza nagusitu** (5); **ezetzaren aldeko** (12); **ezetzik erraiten** (6); **ezetzik erran** (6); **ezetzik esan** (36); **ezetzik esango** (15); **ezetzik esaten** (16); **ezetzik onartuko** (5); **ezin ezetzik** (5); **horri ezetza** (5); **konstituzioari ezetza** (10); **zuen ezetzik** (12); **zuen ezetzik esan** (8)

---

ezeuki *iz/izond* ezer ez daukana.

Hego Amerika edo, hobeto, Afrika aldera joango nintzela, hango **ezeukien** alde zerbait egiteko, misiolari laiko moduan edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Antzinate zaharrean ez bide zen posible horrelakorik: nobleak onak eta ederrak ziren eta eukitsuak; xumeak itsusiak eta gaiztoak ziren eta **ezeuki** landerrak. Joxe Azurmendi

Frantzia gisako Estatu handi batek, nekazaritza zein merkataritza baitaratu eta horrenbeste langintza desberdin eta mota anitzekoak eskaintzen dituen horrek, hain juxtu ere, ez lituzke gizarte **ezeuki** edo urriago bati dagozkion lege single horiek onetsiko. Andres Urrutia

---

ezeuropar *izond* europarra ez dena.

Finkielkrautek azken 50 urte honetan mundua, edo Europa bera, "deseuropartzen" eta "desmendebaltzen" ari dela, ikusi uste badu Parisen, kezka handiz, kezka handia Espainian apenas ematen du justu "deseuropartzea" izan litekeenik, azkeneko 500 urte **ezeuropar** konstantearen ondoren. Joxe Azurmendi

---

ezeuropartasun *iz* ez europarraren nolakotasuna.

Bide batez: Ortega ez da bakarra euskaldunon **ezeuropartasunean** interesatua. Joxe Azurmendi

---

ezezagun 1 *izond* ezaguna ez dena, ezagutzen ez dena.

Baserritarra zen gizon **ezezaguna**, fusilatu behar zuten gazte haietako baten aita. Inazio Mujika Iraola

Giza hiltzaile **ezezaguna**. Elizen arteko biblia

Antzina bai izango zela gaueko iluntasuna ilun, beldurgarri, alegiazko izaki **ezezagunez**, alderrai gaiztoz betea zenean. Josu Zabaleta

Zaila oso, Alemaniako muturrean preso zegoen kaskagorri **ezezagun** batez etenik gabe kezkatzea. Hasier Etxeberria

-Presaka nabil; zain daukat ama; eta, gainera, debekatu egin dit emakume **ezezagunekin** hitz egitea. Jon Muñoz

Ingurutik pasatzen zirenek irribarreren bat egiten baitzuten gehienez, bikote **ezezagunen** krisialdiek eragiten diguten auzo-lotsa puntuarekin. Joxean Agirre

Aberatsa nintzenez, altzari zaharren eta antzinako gauzen zale nintzen; eta askotan etortzen zitzaizkidan gogora gauza haiek igurtzi zituzten esku **ezezagunak**, haiek miretsi zituzten begiak, haiek maite izan zituzten bihotzak, gauza horiek maitatu egiten baitira, zinez! Josu Zabaleta

Lurralde **ezezagunean** sartzekotan zen. Jon Muñoz

Ni, berriz, kristalari itsatsirik nengoen, paisaia **ezezagunari** sorgor begira. Juan Kruz Igerabide

Zortzi edo hamar urtez aritu zen inguruko eta urrutiko lorazainei inbidia emanez, bekaizkeria ereinez lore **ezezagun** eta exotiko haiekin batera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jaki **ezezagun** guztiei santutegi bat eraiki nien, gure patata bakanak lapurtuz jaioterriko soro amaigabeetatik. Eskarne Mujika

Gauza **ezezagunez** betetako kaos honetan funtzionatzen ez dakien iparorratz ero bat da egia. Josu Zabaleta

Zaila oso, Alemaniako muturrean preso zegoen kaskagorri **ezezagun** batez etenik gabe kezkatzea. Hasier Etxeberria

Zer diren oraindik azaldu gabe dauden eta oraindik azaldu ez diren gertaera psikikoak aurkitu ditu, egunero aztertzen den mundu **ezezagun** horretan dabil. Josu Zabaleta

Une horretantxe agertzen zen beldur **ezezagun** eta zorrotz hori. Jose Morales

Bazirudien esan ezinezko izumen batez gauza beldurgarri **ezezagunen** bati begira zeudela. Josu Zabaleta

Herri bat altxaraziko du Jaunak zuen kontra, hizkera **ezezaguneko** herria, urrutitik, munduaren azken muturretik, arranoa bezala hegan etorriko dena. Elizen arteko biblia

Haren atzetik, hura gidari dutela, gizon aurpegiko aker bat eta emakume aurpegiko ahuntz bat, biak ile zuri luzez estaliak, etengabeko erasian, hizkuntza **ezezagun** batean elkarri errietan. Josu Zabaleta

Haserre **ezezagun**, bitxi bat ari zitzaidan burura igotzen. Matías Múgica

Zirrara anarteraino **ezezagun** batek gorputz osoa harrotu zidan, izu-laborriarekin nahasirik. Aingeru Epaltza

Inspirazioa bera bezala, jenialtasuna dohain sekretua zen, esoterikoa, sorleku **ezezagunekoa**. Bernardo Atxaga

2 (predikatu edo gisakoen gisa)

Objektu transzendentala barneko zein kanpoko begiespenari dagokionez **ezezaguna** da era berean. Ibon Uribarri

Ni ere ez nintzen haiendako **ezezaguna**. Aingeru Epaltza

Parrandan nenbilen eta aspaldi ikusi gabeko lagun bat aurkitu nuen; harekin batera beste sei edo zazpi gizonezko zeuden, niretzat **ezezagunak** zirenak. Pako Aristi

Hiruk -emakumezko batek eta gizonezko bik- benetako izena eman zuten; bik izena esateari uko egin zioten eta, halatan, **ezezagun** geratu ziren epaileentzat. Jose Morales

Burutik kendu ezinik nenbilen herri hura lehen ere ikusia nuela, baina, gero, berriro ere, **ezezaguna** iruditzen zitzaidan. Xabier Olarra

Hori, Goetheren ustez, ez zegoen argitzerik Newtonen fisikaren bitartez, baizik eta artean ere **ezezagunak** ziren garunaren legeen bitartez. Xabier Olarra

Arrotz gertatua naiz neure senideentzat, **ezezagun** neure amaren seme-alabentzat. Elizen arteko biblia

Patrizio izutu egin zen, **ezezaguna** baitzitzaion hura guztia: hura ere gehiago izutzen zuen geldialdiak ekaitzaldiak baino. Felipe Juaristi

Argazkietan ageri ziren aurpegi gehienak **ezezagunak** genituen. Juan Kruz Igerabide

3 (izen gisa)

Nola ausartu nintzen **ezezagun** haren aurrean malkoak askatzera? Hasier Etxeberria

Ezezagun baten ehorzketan ere izana naiz -gehitu du irribarrez-. Monika Etxebarria

Are harrigarriago zitzaion, ordea, halako premia sentitzea **ezezagun** baten, sekula ikusi ez, eta aste batzuk lehenago existitzen zenik ere ez zekien gizon baten heriotzarekin loturiko kontu batean nahasteko. Jon Muñoz

-Nire bizitzaren historia latinez, grezieraz, alemanez, italieraz, espainieraz eta frantsesez idatzi dut -zioen **ezezagunak**. Josu Zabaleta

Ezezagunaren fidatzaileak bere buruari kalte, konpromezurik hartzen ez duenak lasaitasuna ziur. Elizen arteko biblia

Edozein ikuspuntutatik begiratuta ere, esku bat esku bat da eta behin **ezezagun** hurkoaren eskutik ibili garenean, zaila da berriro ere esku horren atzean ezkutatzen dena munstro bat izan daitekeela onartzea. Harkaitz Cano

4 (adizlagunekin)

Batzuen batzuk agertu ziren, ordu arte zeharo **ezezagunak**. Jon Muñoz

Chica andreak ez zuen erreakzionatu izena entzutean, guztiz **ezezaguna** zitzaiola iruditu zitzaion Graçari. Bego Montorio

Esnatzean, ordea, areago harritzen da, eguzkiak argitzen duen paisajea **ezezaguna** baitzaio erabat. Bernardo Atxaga

Zerbait berria zen, harrigarriki **ezezaguna**, ez erabat zentzugabea, baina zentzuduna ere ez. Jose Morales

Ez dugu arduratu behar enpirikoki **ezezaguna** zaigun subjektu transzendentalean agerpen hauen eta beren bilkuraren zein oinarri dagoen pentsatzeaz. Ibon Uribarri

5 (adizlagun gisa)

Agerpenak gauzen errepresentazioak besterik ez dira, eta agerpenok **ezezagun** diraute beren baitan izan daitezkeenari dagokionez. Ibon Uribarri

• **6** *iz* matematikan, ekuazio bat ebazteko zehaztu behar zen aldagaia.

Aljebra, 1. eta 2. mailako **ezezagun** bateko ekuazioak. Jon Muñoz

Ezezagun askoko ekuazio askoko sistemak. Jon Muñoz

Bi **ezezaguneko** bi ekuazioko sistema. Jon Muñoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots ezezagun (8); **ahots ezezagun batek** (4); **alderdi ezezagun** (3); **arte ezezagun** (5); **atzo ezezagun** (3); **aurpegi ezezagun** (3); **berri eta ezezagun** (4); **berri ezezagun** (4); **bi ezezagun** (4); **edo ezezagun** (5); **emakume ezezagun** (20); **emakume ezezagun bat** (3); **emakume ezezagun baten** (8); **emakume ezezagun hura** (3); **esku ezezagun** (9); **esku ezezagun batek** (4); **eta ezezagun** (33); **eta ezezagun baten** (5); **eta ezezagun hori** (3); **etxe ezezagun** (3); **ezezagun asko** (6); **ezezagun bat** (75); **ezezagun bat azaldu** (3); **ezezagun bat baino** (3); **ezezagun bat balitz** (4); **ezezagun batean** (28); **ezezagun batek** (76); **ezezagun batek deitu** (3); **ezezagun batekin** (17); **ezezagun bateko** (7); **ezezagun baten** (51); **ezezagun baten aurrean** (3); **ezezagun baten eskuetan** (3); **ezezagun batena** (3); **ezezagun batera** (8); **ezezagun batez** (8); **ezezagun bati** (19); **ezezagun batzuek** (48); **ezezagun batzuk** (14); **ezezagun den** (3); **ezezagun egin** (3); **ezezagun eta** (28); **ezezagun gajoa** (5); **ezezagun haiek** (6); **ezezagun haietako** (4); **ezezagun haren** (6); **ezezagun hari** (3); **ezezagun hark** (5); **ezezagun hau** (6); **ezezagun hori** (13); **ezezagun horrek** (4); **ezezagun horren** (3); **ezezagun horretan** (3); **ezezagun hura** (18); **ezezagun neure** (4); **ezezagun neure amaren** (4); **ezezagun samarra** (4); **ezezagun samarra da** (3); **ezezagun samarrak** (3); **ezezagun talde** (4); **ezezagun talde batek** (4); **gaitz ezezagun** (3); **gauza ezezagun** (4); **gazte ezezagun** (5); **gizon ezezagun** (12); **gizon ezezagun bat** (3); **guztiz ezezagun** (7); **hainbat ezezagun** (4); **hiri ezezagun** (3); **hizkuntza ezezagun** (17); **hizkuntza ezezagun batean** (9); **igandean ezezagun** (3); **igandean ezezagun batzuek** (3); **indar ezezagun** (10); **indar ezezagun batek** (6); **jainko ezezagun** (5); **leku ezezagun** (8); **leku ezezagun batean** (3); **lurralde ezezagun** (5); **mundu ezezagun** (6); **neska ezezagun** (8); **neska ezezagun batekin** (3); **objektu ezezagun** (5); **oraindik ezezagun** (3); **pertsona ezezagun** (3); **poema ezezagun** (4); **talde ezezagun** (3); **toki ezezagun** (3); **zaldun ezezagun** (4); **zen ezezagun** (3); **zituzten ezezagun** (3); **zituzten ezezagun batzuek** (3); **zuen ezezagun** (8); **zuten ezezagun** (6); **zuten ezezagun batzuek** (4)

aita ezezaguna (3); **arte ezezaguna** (21); **arte ezezaguna izan** (3); **arte ezezaguna zen** (12); **arte ezezagunak** (9); **arte ezezagunak ziren** (4); **artean ezezaguna** (4); **artean ezezagunak** (4); **asko ezezagunak** (3); **aurpegi ezezagunak** (4); **baina ezezaguna** (4); **baina ezezagunak** (3); **bat ezezaguna** (3); **bezain ezezaguna** (4); **bi ezezagunen** (3); **da ezezaguna** (5); **denak ezezagunak** (3); **edo ezezaguna** (4); **egile ezezaguna** (4); **erabat ezezaguna** (14); **erabat ezezagunak** (6); **ere ezezaguna** (5); **eta ezezaguna** (11); **eta ezezagunak** (19); **eta ezezagunaren** (5); **eta ezezagunez** (3); **ez da ezezaguna** (4); **ezagunak eta ezezagunak** (7); **ezezaguna bada** (3); **ezezaguna baitzaio** (3); **ezezaguna baldin** (3); **ezezaguna da** (34); **ezezaguna da oraindik** (3); **ezezaguna dela** (7); **ezezaguna den** (16); **ezezaguna denean** (4); **ezezaguna egin** (3); **ezezaguna egiten** (6); **ezezaguna egiten zitzaidan** (3); **ezezaguna ere** (3); **ezezaguna eta** (13); **ezezaguna ez** (3); **ezezaguna helbide** (13); **ezezaguna helbide honetan** (12); **ezezaguna izan** (18); **ezezaguna izan arren** (3); **ezezaguna izan da** (4); **ezezaguna izan den** (4); **ezezaguna izango** (6); **ezezaguna izatea** (4); **ezezaguna izaten** (5); **ezezaguna izaten jarraitzen** (3); **ezezaguna jarri** (3); **ezezaguna zaigu** (5); **ezezaguna zaigun** (7); **ezezaguna zela** (5); **ezezaguna zelako** (3); **ezezaguna zen** (41); **ezezaguna zitzaion** (8); **ezezaguna zuen** (4); **ezezagunagoa da** (3); **ezezagunagoak dira** (3); **ezezagunak bildu** (3); **ezezagunak dira** (13); **ezezagunak diren** (12); **ezezagunak edo** (3); **ezezagunak ere** (3); **ezezagunak eta** (7); **ezezagunak izan** (8); **ezezagunak zaizkigu** (4); **ezezagunak zaizkigun** (5); **ezezagunak ziren** (20); **ezezagunak zitzaizkigun** (3); **ezezagunak zitzaizkion** (5); **ezezagunekin hitz** (4); **ezezagunen arteko** (5); **ezezagunen bat** (5); **ezezagunen baten** (3); **ezezagunetan barrena** (3); **gauza ezezagunez** (3); **gehienak ezezagunak** (5); **gizon ezezaguna** (4); **gizon ezezagunak** (3); **guretzat ezezaguna** (3); **guretzat ezezagunak** (3); **guri**

ezezaguna (4); **guri ezezaguna zaigun** (3); **guztiz ezezaguna** (19); **guztiz ezezaguna den** (3); **guztiz ezezagunak** (7); **hau ezezaguna** (4); **hiri ezezaguneko** (3); **hitz ezezagunak** (4); **honetan ezezaguna** (3); **ia ezezaguna** (11); **ia ezezaguna izan** (3); **jatorri ezezaguneko** (3); **lan ezezagunak** (3); **maisulan ezezaguna** (8); **nahiko ezezaguna** (5); **nahiko ezezaguna da** (3); **niretzat ezezagunak** (7); **niretzat ezezagunak ziren** (4); **orain arte ezezaguna** (12); **orain arte ezezagunak** (6); **oraindik ezezaguna** (3); **oraindik ezezagunak** (3); **ordura arte ezezaguna** (4); **oso ezezaguna** (4); **oso ezezagunak** (3); **soldadu ezezagunaren** (5); **talde ezezaguna** (4); **txirrindulari ezezaguna** (4); **zaldun ezezaguna** (5); **zaldun ezezagunak** (5); **zaldun ezezagunari** (3); **ziren ezezagunak** (3); **zuen ezezagunak** (5)

---

ezezagunki *iz* ezezaguna.

Zer da hemen X= **ezezagunkia**, adimenaren euskarria dena honek A adigaitik at B predikatu arrotza aurkitu duela uste duenean, hots, adigai hartatik at egon arren harekin elkarlotua dagoela estimatzen duen predikatua aurkitu duela uste duenean? Ibon Uribarri

---

ezezaguntasun *iz* ezezaguna denaren nolakotasuna.

Lurbarrengo eszenatoki anonimo hartan, begirada ezkutatuz eta saihestuz betea, denak partaide ziren, **ezezaguntasunaren** kideak. Iñaki Zabaleta

---

ezezagutu, ezezagut(u), ezezagutzen du *ad* ez ezagutu, kontuan ez hartu.

Bi aldeen arteko adostasuna lor daiteke ikuspegi honetatik eta epaileak bi aldeek **ezezagutu** zuten zuzenbidezko oinarriaren gabezia osatu. Ibon Uribarri

Euskara gero eta **ezezagutuagoa** da Iparraldean bainan jende ainitz borrokatzen dira. Herria

Nostalgiaz estaltzen ditut goxatu ez ditudan egunak, plazer **ezezagutuak**. Piarres Aintziart

Hartako nahiago nuke pilotari izan, **ezezagutua** izanik ere. Menane Oxandabaratz

---

ezezagutza *iz* ezagutza falta.

Nondik heldu ez jakitea izan daiteke arrazoi bat, **ezezagutza** beste bat edo eta ezin ulertua. Ana Urkiza

Are, zuretzat, haren identitate arazo gabekoaren, zure identitate arazoen bost axolaren, haren "modernitate" primitibo haizejoaren eta zure **ezezagutzaren** atzean, Espainia modernoaren inposizio historia guztia dago ezkutatua, genozidio kultural luzatu bat su txikian. Joxe Azurmendi

Atzerrira joan izan denean eta ez dagokion kultura baten aurrean aurkitzean, «idealizatu» egin du askotan herri hori, «sortu duen irudi exotikoagatik»; beste batzuetan «arbuiatu» egin du, **«ezezagutzagatik»**. Berria - Kultura

Alde horretatik **ezezagutza** handia dugu, eta, hain zuzen ere, horrexek bultzatzen nau aztertzera eta idaztera. Ana Urkiza

Zurien eta indigenen arteko **ezezagutza** eta bazterketa ikaragarria da. Berria - Kultura

Otsagabia txostena, «desdoblamenduaz» teorizatzen duen agiria, KASen jatorriarekin lotzeak historiaren **«ezezagutza** nabarmena» erakusten duela esan zuen Alegriak. Berria - Euskal Herria

---

ezezik ik **ez 10**.

---

ezezka **1** *adlag* ezetz esanez.

Negu beltzean, lurra lo dagoela dirudienean, mezulari bat **ezezka**, zuhaitz gainean. Patziku Perurena

STELLAk burua astindu du **ezezka**. Xabier Paya

Petrikiloak eskua jaso zuen, **ezezka**. Juan Kruz Igerabide

Zeren pertsona bat besterik gabe garbitzea... -buruari eragin zion **ezezka**. Migel Angel Mintegi

Dummyk atzera egin zuen, buruaz **ezezka**. Koro Navarro

Van Daan andrea denei **ezezka** aritzen da, baita Churchill berari eta informazio zerbitzuari ere, baina mister Beaverbrookekin ados egoten da beti. Josu Zabaleta

Bazegoen zerbait Gestapoko hura konbentzitzen ez zuena, **ezezka** ari zen buruarekin. Fernando Rey

Neskatxek irrifar konplize batekin **ezezka** bezala erakusten zuten baiezko libido gordea. Patziku Perurena

Ezin zara eseri hor eta niri **ezezka** hasi, ondoren zer gertatu zen ez zarela oroitzen-eta. Mirentxu Larrañaga

Hansek, aspaldi hartan Torrelliren etxearen hondakinen artean amerikar soldaduak nazka-nazka egiteraino ibilia baitzen, **ezezka** mugitzen zuen burua. Alberto Ladron Arana

2 ***ezezka egin***

Morroiak **ezezka egin** zuen buruari eraginez. Aingeru Epaltza

Teteloak **ezezka egin** zuen buruaz berriz, beti zegoen zerbait hura konbentzitzen ez zuena. Fernando Rey

Anaia mutua hizketan ari zen bere arrebarekin erotua nengoela esateko, buruaz **ezezka egiten** zuen onartzeko moduko tipoa ez nintzela adierazteko. Fernando Rey

Mutilaren erreakzioa zeharo histrionikoa izan zen, deskarga elektriko batek astindu berri zuela pentsatzeko modukoa: bere aulkitik ia-ia saltatuz, neskaren besoari heldu eta, **ezezka eginez**, haren errua adierazi nahi zion nonbait: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

3 ***ezezkako*** *izlag*

Ezezkako mintzoari eder iritzirik gaude; halaxe gelditu ginen, itxura denez. Iñaki Segurola

Nik ere "auskalo" diot, baina zinezko auskalo bat, **ezezkako** auskalo garbi bat; ez dakigula, ez dagoela jakiterik, gerokorik ez dela orain tokatzen, eta ez duela inork profilaktikoki eta prospektiboki nere eskurik irakurriko. Iñaki Segurola

Gu indeterminazioaren alde gaudela; jeneralean gauzen kontra egon ohi gara, edo sasi-gauzen alde [...] edo bestela **ezezkako** gauzen alde, nola baita, jaun-andereak, presenteko kasua. Iñaki Segurola

---

ezezko **1** *ezetz*-i dagokion izenlaguna. ant **baiezko**.

Buruarekin baiezko eta **ezezko** keinu bakan batzuk, baina hitzik ez, hotsik ez, mihirik erabiltzeko ahaleginik batere ez. Oskar Arana

Ugazalabak, graziaz, irribarre maleziatsu batez, bizpahiru aldiz **ezezko** keinua egingo du eskuko hatzaz. Josu Zabaleta

Orain, **ezezko** jarrera ofizialki agertzea eskatu diegu. Berria - Euskal Herria

Poema bilduma bat egiteko proiektua aurkeztu eta **ezezko** erantzuna jaso berria zuen. Javi Cillero

Prefetak ukatzen du orain **ezezko** ihardespen horien balioa, erranez ez dutela kontrako argumentu sinesgarririk ekartzen. Herria

Suitzako Alderdi Berdeak eta talde kristau kontserbadoreek eskatu zuten **ezezko** botoa. Berria - Gaiak

IUk **ezezko** boza eman zuen eta PSOE abstenitu egin zen. Berria - Kultura

Galdeketan baietza nagusitzen bada ere, **ezezko** kopurua handia eta parte hartzea txikia izanez gero, krisia egongo da, eta Estatutuak indarra galduko du. Berria - Mundua

Irudiek ezin dituzte esanahi batzuk adierazi ere, **ezezko** adierazpenak batez ere. Josu Zabaleta

Azterketa formaldatzaileak argitara ekartzen du galderek eta **ezezko** perpausek funtsean "egitura" bera dutela. Itziar Laka

Ezezko atributuek badute zenbait kidetasun baiezkoekin, nahitaez nolabaiteko berezitasuna eskaintzen dutelako. Xabier Kintana

Hona hemen zertan ezberdintzen diren **ezezko** atributuak baiezkoetatik. Xabier Kintana

Jainkoaren existentzia, bakartasuna eta gorpuzgabetasuna bezalako ezaugarri formalak ere **ezezko** teologiaren bidez azaldu behar dira ezinbestez. Xabier Kintana

Helegiteak baiezko 11 boto jaso zituen eta 37 **ezezko**. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoekin)

-Nahi duk freskagarriren bat? - **ezezko** mutu bat egin nuen buruaz. Alberto Ladron Arana

Ez da handiusteko emakume ziztrin baten **ezezko** zitalarekin koldartzen den horietakoa. Arantxa Iturbe

Bere oroitzapenak papereratuko ote lituzkeen galdetu eta harentzat batere espero ez zuen hordagoa izan zen, baina ez gintuen **ezezko** zorrotz batekin antzarak ferratzera bidali. Berria - Kultura

Alde agertu arren, baldintzak ezarri zituen lehenak; eta bigarrenak **ezezko** irmoa eman zion operazioari. Berria - Ekonomia

Abstentzio handiak eta **ezezko** esanguratsuak auzitan jarri dute nabarmen Euskal Herrian Europako Konstituzioa. Berria - Harian

Jasotako **ezezko** garratzak, ordea, berandu bezain argi erakutsi dio burla gorrizkoa zela atseginezkoa uste zuen irria. Xabier Mendiguren Elizegi

Izan ere, pentsatu zuen Del Vallek, toki haietan guztietan gauza berdintsuak aurkitu zituzten: enplegatu ergelak, irribarre ergelak, **ezezko** ergelak. Alberto Ladron Arana

Txitxikovek, ordea, **ezezko** biribila eman zien jokatzeari eta edateari. Jose Morales

Zalantza egiten dut ea Patxirekiko josteta moduko hura ez ote dudan alferrik iraunarazi, hari **ezezko** borobila ematera guztiz ausartu gabe. Patxi Zubizarreta

«**Ezezko** herritar, ezkertiar eta internazionalista» izan da, LCRren arabera. Berria - Harian

Banekiela horrek konexioren bat zeukala egun hartan jazotakoarekin; ez Eliren edo Aintzaneren edo Josuneren ezezkoekin, Arantxaren **ezezko** zehatz harekin baizik. Iban Zaldua

Gehiengo nasai batek (%55) **ezezko** argi baten bidez gibelera bota du Lege Nagusi gai hori. Herria

Arrain saltzaileak **ezezko** garbia eman berri zion Lebigre jaunari, zeinak ezkontzeko galdea egin baitzion modu agerikoan. Karlos Zabala

Ezezko lehor-lehorra erantzun zion andreak. Karlos Zabala

Ezezko iraunkor harengatik suminez, gutun bat idatzi zion azkenean Tartagliari Girolanok, esanez handiputz hutsa zela, eta "ibarrean baino ez zegoelarik, mendi-tontorrean zegoela pentsatzen zuen" harroa galanta. Jon Muñoz

Ez da **ezezko** bakar bat ere izan. Anjel Lertxundi

3 (izen gisa)

Buru ukaldi labur batez **ezezkoa** adierazi zidan. Aingeru Epaltza

Baiezkoa bezala **ezezkoa** ere adieraz zezakeen keinu zimardi-tsu bat egin zion Norak buruaz. Anjel Lertxundi

Zeurean segitzen al duzu gurekin etortzeko buru-buztanik gabeko **ezezko** horretan? Anjel Lertxundi

-Ez! - **ezezko** harekin estali nahi izan nuen odolak agerian jartzen zidana, zeren zinez bainengoen amorosiak jorik eta ene amorio hari errendaturik. Joan Mari Irigoien

Zuzendari txit agurgarriari zuzendutako ADA guztiz adeitsuek **ezezko** baten kortesia ere ez dutela ikusirik [...]. Anjel Lertxundi

Haren **ezezkoa**, biribila bezain patxadakoa izan zen. Aingeru Epaltza

Eta kunplitu dut, hiru pista **ezezko** emanda. Joxerra Garzia

4 *ezezkoa egin*

Baina mutilak **ezezkoa egin** zuen, esanez: [...]. Patxi Zubizarreta

Goxokiari ere **ezezkoa egin** eta gero, bere bisitaren zergatia agertu dit bisitariak, olibondo bat baino serioago. **Ezezkoa egin** nien adiskideak eskaintzen zizkidan aukera haiei. Anjel Lertxundi

Adelak **ezezkoa egin** zuen eskuaz. Bernardo Atxaga

Ezezkoa egin nion burua mugituz. Jesus Mari Mendizabal

Hark **ezezkoa egin** zidan buruari eraginez. Aingeru Epaltza

Baso handi baten erdira eraman zituen, kanpora irten, ingurura begiratu, buruaz **ezezkoa egin**, autora itzuli eta berriro alde egin zuten. Iñaki Mendiguren

Aski duzu buruaz **ezezkoa** edo baiezkoa **egitea** -erantsi zuen presaka, Dobbyren burua berriz paretara hurbiltzen ari baitzen kezkagarriro. Iñaki Mendiguren

-Gu ere zurekin egongo gara, Hagrid -hasi zitzaion Hermione, baina Hagridek **ezezkoa egin** zion bere buru iletsuaz. Iñaki Mendiguren

Frantziskok **ezezkoa egin** zuen buruarekin. Aingeru Epaltza

Bost minutu geroago, Ron eta Hermione Harryrekin elkartu ziren, buruekin **ezezkoa eginez**. Iñaki Mendiguren

Sugeak buruaz **ezezkoa egiten** zion bitartean, Harryren atzean oihu lazgarri batek salto eginarazi zien biei. Iñaki Mendiguren

5 *ezezkoan* *(orobat **ezezkotan** g.er.)* ezezkoa delakoan; ezetz izatekotan.

Aitarengatik hasi nintzen, aita baitzen arriskutsuena harroxko jartzen bazen eta **ezezkoan** setatzen bazen. Jon Muñoz

Afifi anderea ordurako bere gogara sentitzen zen, baina, amore eman nahi ez, eta bere **ezezkoan** tematurik jarraitu nahi izan zuen. Patxi Zubizarreta

Frantziak **ezezkoan** segitzen du. Berria - Euskal Herria

Ezezkoan jarraitzen baduzu, zure herrialde osoa igel-izurriz joko dut.

Hura ere tristea izan al zen?" **Ezezkoan** hasi naiz, hura ez zitzaidala niri gertatu. Bernardo Atxaga

Guk kolorezkoa eta koloretsua zela uste, bai baiezkoan eta bai **ezezkoan**: gizajoak gu! Iñaki Segurola

Faboritoen artean kokatu dute, baina bera **ezezkoan** da; orain arteko hilabete gogorrak gogoratzeko eskatu du, horretarako. Berria - Kirola

Ezezkoan ados daude, baiezkoan erabateko adostasunik ez dago, ordea. Berria - Harian

Ezin omen liteke munduan inor izan Louvre-a ezagutzen ez duenik, hala nahita behintzat, interesatzen ez zaiolako; ni **ezezkoan** nago, jakina. Joxe Austin Arrieta

- **Ezezkoan** nago -hasi zen Marshall andrea, eta zalantza egin zuen-. Mirentxu Larrañaga

Barka diezadatela arimaren transmigrazioan edo ez-dakit-zer energiatan sinisten duten guztiek, baina **ezezkoan** nago. Bernardo Atxaga

Laguna, aita onberaren premia ikusiz, **ezezkoan** zegoen tinko, ezin ziela besteei lagundu eta bere buruaz ahaztu. Askoren artean

Buruari eragin zion, **ezezkoan**. Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baiezko eta ezezko (4); **baina ezezko** (7); **batez ere ezezko** (3); **beste ezezko** (3); **du ezezko** (3); **eak ezezko** (3); **eak ezezko botoa** (3); **ere ezezko** (9); **erreferendumean ezezko** (8); **erreferendumean ezezko botoa** (8); **eta ezezko** (27); **eta ezezko biribila** (3); **eta ezezko boto** (3); **eta ezezko erantzuna** (3); **ezezko atributu** (3); **ezezko atributuak** (3); **ezezko atributuek** (3); **ezezko bat** (5); **ezezko biribil** (4); **ezezko biribila** (33); **ezezko biribila eman** (17); **ezezko biribilik** (4); **ezezko borobila** (29); **ezezko borobila eman** (13); **ezezko borobilarekin** (3); **ezezko borobilik** (4); **ezezko boto** (6); **ezezko botoa** (44); **ezezko botoa eman** (10); **ezezko botoa emango** (6); **ezezko botoa emateko** (3); **ezezko botoa eskatuko** (6); **ezezko botoak** (6); **ezezko botoaren** (3); **ezezko botoek** (3); **ezezko boza** (6); **ezezko erantzuna** (23); **ezezko erantzuna eman** (6); **ezezko erantzuna jaso** (7); **ezezko erantzunarekin** (3); **ezezko eta** (3); **ezezko garbia** (8); **ezezko garbia eman** (6); **ezezko jarrera** (4); **ezezko keinu** (3); **ezezko keinua** (18); **ezezko keinua egin** (12); **planari ezezko** (3); **proposamenari ezezko** (7); **proposamenari ezezko borobila** (3); **zion ezezko** (3)

baiezkoa edo ezezkoa (7); **baina ezezkoa** (14); **baina ezezkoa eman** (5); **baina ezezkoa jaso** (4); **baina hark ezezkoa** (4); **batek ezezkoa** (3); **bati ezezkoa** (5); **beti ezezkoa** (4); **buruarekin ezezkoa** (5); **buruaz ezezkoa** (14); **buruaz ezezkoa egin** (8); **da ezezkoa** (4); **dobbyk ezezkoa** (3); **dobbyk ezezkoa egin** (3); **eajk ezezkoa** (4); **edo ezezkoa** (9); **erantzuna ezezkoa** (20); **erantzuna ezezkoa izan** (6); **erantzuna ezezkoa izango** (3); **erantzunak ezezkoa** (3); **erck ezezkoa** (3); **ere ezezkoa** (14); **ere ezezkoa eman** (5); **erreferendumean ezezkoa** (7); **eskaerari ezezkoa** (5); **eskaerari ezezkoa eman** (3); **eskaintzari ezezkoa** (3); **eta ezezkoa** (24); **eta ezezkoa eman** (5); **ezezkoa adierazi** (4); **ezezkoa atera** (3); **ezezkoa bada** (5); **ezezkoa bozkatu** (8); **ezezkoa bozkatu zuten** (3); **ezezkoa bozkatuko** (3); **ezezkoa bozkatzeko** (3); **ezezkoa da** (8); **ezezkoa edo** (3); **ezezkoa egin** (57); **ezezkoa egin nion** (7); **ezezkoa egin nuen** (3); **ezezkoa egin zion** (18); **ezezkoa egin zuen** (16); **ezezkoa eginez** (4); **ezezkoa egiten** (8); **ezezkoa egiten zuen** (4); **ezezkoa eman** (163); **ezezkoa eman behar** (4); **ezezkoa eman dio** (12); **ezezkoa eman diote** (10); **ezezkoa eman dioten** (3); **ezezkoa eman eta** (8); **ezezkoa eman izana** (3); **ezezkoa eman ondoren** (3); **ezezkoa eman zien** (12); **ezezkoa eman zion** (25); **ezezkoa eman zioten** (19); **ezezkoa eman zuen** (8); **ezezkoa eman zuten** (4); **ezezkoa emanez** (3); **ezezkoa emanez** (8); **ezezkoa emanez gero** (4); **ezezkoa emango** (18); **ezezkoa emango diola** (3); **ezezkoa emango diotela** (4); **ezezkoa ematea** (22); **ezezkoa emateko** (24); **ezezkoa emateko aukera** (3); **ezezkoa ematen** (12); **ezezkoa ematera** (3); **ezezkoa erantzun** (10); **ezezkoa esan**

(9); **ezezkoa eskatu** (9); **ezezkoa eskatzen** (3); **ezezkoa eta** (5); **ezezkoa ez** (3); **ezezkoa izan** (17); **ezezkoa izan da** (6); **ezezkoa izan zen** (8); **ezezkoa izango** (5); **ezezkoa izango dela** (3); **ezezkoa jaso** (27); **ezezkoa jaso du** (5); **ezezkoa jaso dute** (3); **ezezkoa jaso zuen** (6); **ezezkoa jaso zuten** (4); **ezezkoa nagusi** (3); **ezezkoa nagusitu** (9); **ezezkoa nagusitu da** (4); **ezezkoa nagusituko** (3); **ezezkoa nagusituko da** (3); **ezezkoa proposatuko** (3); **gero ezezkoa** (3); **haren ezezkoa** (3); **hark ezezkoa** (9); **hark ezezkoa eman** (5); **harryk ezezkoa** (4); **harryk ezezkoa egin** (4); **hasieran ezezkoa** (3); **honek ezezkoa** (3); **horri ezezkoa** (3); **horri ezezkoa eman** (3); **itunari ezezkoa** (9); **itunari ezezkoa emateko** (3); **konstituzio itunari ezezkoa** (5); **konstituzioari ezezkoa** (6); **mozioari ezezkoa** (3); **mozioari ezezkoa eman** (3); **nire ezezkoa** (3); **proposamenari ezezkoa** (7); **proposamenari ezezkoa eman** (5); **ronek ezezkoa** (4); **ronek ezezkoa egin** (4); **zen ezezkoa** (3); **zion ezezkoa** (4)

baiezkoaren eta ezezkoaren (3); **baiezkorik ez ezezkorik** (3); **du ezezkoaren** (3); **du ezezkorik** (3); **emandako ezezkoaren** (3); **ere ezezkoaren** (3); **eta ezezkoak** (4); **eta ezezkoaren** (10); **ez ezezkorik** (5); **ezezkoak ez** (7); **ezezkoak ez du** (3); **ezezkoak irabazi** (9); **ezezkoak irabazi zuen** (3); **ezezkoak irabaziz** (3); **ezezkoak irabaziz gero** (3); **ezezkoan nago** (10); **ezezkoan zegoen** (3); **ezezkoarekin erantzun** (11); **ezezkoarekin erantzun zion** (3); **ezezkoaren alde** (19); **ezezkoaren alde egingo** (3); **ezezkoaren aldeko** (46); **ezezkoaren aldeko botoa** (3); **ezezkoaren aldeko ekimena** (3); **ezezkoaren aldeko jarrera** (5); **ezezkoaren aldeko kanpaina** (10); **ezezkoaren aldekoa** (3); **ezezkoaren aldekoak** (8); **ezezkoaren aldekoek** (3); **ezezkoaren aldekoen** (3); **ezezkoaren eta** (5); **ezezkoaren eta abstentzioaren** (4); **ezezkoaren ondoren** (3); **ezezkorik eman** (9); **ezezkorik esan** (4); **ezezkorik esango** (3); **ni ezezkoan** (3)

---

ezezkor *izond* ezezkoa; ezkorra. ik **negatibo**.

Munduaren handitasunaz egindako galdekizun kosmologikoaren lehen erantzuna, hortaz, eta erantzun **ezezkorra**, hau da: munduak ez dauka lehen hasierarik denborari dagokionez, ezta kanpoko mugarik ere espazioari dagokionez. Ibon Uribarri

Halaber, azken urteotan egin diren dekretu eta ekintza-planak ere bertan behera uzteko galdegin zuen, eta «lege ibilbide **ezezkorra** desegitea. Berria - Euskal Herria

Batzutan, konotazio **ezezkorra** du, hetsikeriari lotua. Herria

Darricauk badu interpretazio **ezezkorra** Arbelbideren biziko gertakarietaz, beste askotan ere. Xipri Arbelbide

Kultura eta soziologiaren esparruetatik fenomeno hau modu **ezezkorrean** interpretatu izan ohi da sarritan. Iñaki Heras

Beste batzuetan... adorea galduko banu legez geratzen naiz, burutapen **ezezkorretan** jausten naiz, eta ia dardarka uzten nau izerdi hotz moduko zerbaitek. Josu Landa

Orokorki bisean bis gurutzatzen ditudanei ere ez diet "gaizki izana" aipatzen, nahikoa **ezezkorra** naizela beraiek ohartzen direla hargatik. Itxaro Borda

Baina, oso iritzi **ezezkorra** eraman zuen bueltan. Iñaki Heras

Alderdi sozialistak, berak duen makinaria guztiarekin, Estatuko gobernua bere eskuetan izatearekin, urratsak oso poliki eman beharra dauka, eta horregatik, eman duen erantzuna, oso ñabartua izanagatik, ez da **ezezkorra** izan. Berria - Euskal Herria

Ez dut **ezezkorra** izan nahi, baina oraingoz, gauden bezala gaude. Berria - Kirola

Bake prozesu bat eraikitzeko bermerik eskaintzen ote du Zapaterok, Auzitegi Nazionaleko edo Auzitegi Goreneko zutabe garrantzitsu batzuk, Guardia Zibila eta Poliziaren informazio zerbitzuak edota gobernukide eta alderdikideren batzuk kontra edukita? Beroan galdetuta, erantzuna **ezezkorregia** suerta daiteke. Berria - Euskal Herria

---

ezezkortasun *iz* ezezkorra denaren nolakotsuna.

Belaunaldi zail eta ozpindu bateko semea, euskal gizartea etsipenak eta **ezezkortasunak** jota zegoen aldikoa. Berria - Kultura

---

ezezkotan ik **ezezko 5**.

---

ezeztaezin *izond* ezin ezeztatuzkoa.

Hortaz, eta arrazoi osoz, miretsi egiten dugu, baita bere xede **ezeztaezinak** ere, ez bakarrik gaitz guztiak bere ahalguztiduntasunaren menpe daudelako, baizik eta, baita ere, bere gorengo arrazoiaz, zoritxarren, oinazeen eta irainen menpe jartzen gaituelako. Jon Alonso

Aurreko hautatzaile Iñaki Saezek dimisio **ezeztaezina** aurkeztu du eta «Espainiako taldea ez entrenatzeko erabaki atzeraezina» hartu zuela onartu du. Berria - Kirola

Jainkoaren kontsolamenduaz gainezka, tinko erabaki zuten eta **ezeztaezineko** konpromisoa hartu ez goseak ez inolako atsekabek ez zituela aldenduko hitzemandako pobretasun santutik.Argudio **ezeztaezintzat** zeukaten gizakiak beste gizaki menderatzaileen zerbitzuan egotea injustua dela. Askoren artean

Bestetik, deialdian jasotzen den moduan, epaimahaiaren erabakia «isilpekoa, **ezeztaezina**, apelaezina eta behin betikoa» bada, udalak legeria hautsiko lukeelako. Berria - Euskal Herria

Kristautasunak judaismoarekiko zuen erlazioa **ezeztaezina** zen juduen begietara eta gogaikarriro anbiguoa zen kristau-kontzientzientzat. Iñaki Mendiguren

---

ezeztaile *izond* ezeztatzen duena.

Bada ulertzeko moduko beste egia bat, eta hura da egia **ezeztatzailea** dei daitekeena, hots, zerbaiten gezurra edo zerbait gezurra dela salatzeko esaten dena. Iñaki Segurola

Haurrak berekin dakarren hitza eta arrazoi **ezeztatzailea** ixilarazteko botatzen du helduak "zergatik eta hargatik". Iñaki Segurola

Vila-Matasentzat horiek guztiak sorkuntzaren **ezeztatzaileak** dira, asmatzen jarraitzeko aukera oro ezeztatzen saiatu zirenak. Berria - Kultura

Filologo edo hitz-maite ona, izan ere, fidakaitz eta sinesgogor amorratua baita dotrinanteekiko, fedekalte eta fedegalgarria, letrazko irudipen engainagarrien **ezeztatzailea**, izpiritu xano sineskorren, ideien eraikitzaile gezur-merkeen eta "bizitzen laguntzen duten" gezur polit kontsolagarrien etsai txarrena. Iñaki Segurola

---

ezeztapen **1** *iz* ezeztatzea.

Perpaus aktibo eta pasiboak, edo **ezeztapen**, adierazpen eta galderazko perpausen eta gainerako harreman formaldatzaileen arteko antzekotasuna ez zen argitara azalduko, aktibo-pasibo harremana sinonimia bezalako nozioen arabera ikertu izan balitz bakarrik. Itziar Laka

Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatua da, eta Massachusettseko Institut of Technology zentroan doktoratua, 1990ean, Noam Chomskyk eta Ken Halek zuzendutako tesi batekin: *Negation in Syntax: A study on the Nature of Functional Categories* (**Ezeztapena** sintaxian: funtzio kategorien izaerari buruzko azterketa). Berria - Kultura

Ezeztapenaren azalpen formaldatzailea, osagai-egituran aurki daitekeen beste edozein azalpen baino errazagoa da. Itziar Laka

Har dezagun orain *not* edo *n't* **ezeztapenaren** txertatzea aditz laguntzailearen osagaian. Itziar Laka

Mekanizismoa bai historiaren eta bai arimaren **ezeztapena** da. herri kurduaren kontrako lau estatuen politiken aurrean bazterketa, suntsiketa, **ezeztapena** bere burua eremu guztietan defendatzea zilegia dela uste dugu. Joxe Azurmendi

Horretara, 1876ko uztailean gertatutako euskal foruen **ezeztapena**, legezkoa, 1839koaren bidetik mamitutakoa, askoz ere beranduago ikasi nuen. Txillardegi

Kant deuseztailearen Dialektika transzendentala ordu arteko Metafisika ororen **ezeztapena** da, Metafisika hau itxurazko jakintza soila den heinean. Ibon Uribarri

Gure galdekizuna baieztapenera edo **ezeztapenera** soilik bideratzen bada, orduan zuhurra da erantzunaren ustezko oinarriak alde batera uztea eta aurretik kontsideratzea ea zer irabaziko litzatekeen, erantzunak alde batera ala aurkakora joko balu. Ibon Uribarri

Ezeztapen transzendental batek, aitzitik, ez-izatea esan nahi du bere baitan, zeinari baieztapen transzendentala kontrajartzen zaion. Ibon Uribarri

"Ez" hitz motzak soilik iragartzen duen **ezeztapen** logikoa ez zaio benetan inoiz adigai bati atxikitzen. Ibon Uribarri

Iaz Airbusek 24 erosleren 284 eskari berri jaso zituen, nahiz eta **ezeztapenen** ondoren, kopuru hori 254an geratu zen azkenean. Berria - Ekonomia

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Beharrezko ez diren errepikapenak, alferreko azalpenak, **ezeztapen** eta erantzun ziztrin eta hutsalak maiz, erretorika eta poetika jokoak baino ez dira. Xabier Kintana

Egiazko **ezeztapen** guztiak, beraz, zedarriak besterik ez dira, eta hau ezingo litzateke esan beraiez, oinarrian zedarririk ez duena (orotasuna) egongo ez balitz. Ibon

Uribarri

3 (hitz elkartuetan)

Lasterbidezko telegrama baten hartzaile izatearen prestigioak, berriaren **ezeztapen** -formaren eta adberbio ezinago larriaren arteko kontraesana Fray Bentos osoari azaltzeko irrikak, gizon peto bati dagokion estoizismoaren itxurak eginez nire oinazea dramatizatzeko tentazioak, ez zioten apika lekurik batere utzi saminari. Juan Garzia

---

ezeztatu, ezezta(tu), ezeztatzen **1** du *ad* zerbait gezurrekotzat jo, ezezko esaldi batez adierazi.

Judizio problematikoak, baieztatzea edo **ezeztatzea** ahalgarritzat (apetaz) besterik onartzen ez dituzten judizioak dira. Ibon Uribarri

Tomek Kansas City zela uste izan zuen, haren elastikoarengatik, baina Lucyk uko egin zion susmoa baieztatu edo **ezeztatzeari**. Oskar Arana

Hau ez dute errefutatzen ez **ezeztatzen** berbertatik ezagutzen diren gertakari nabariek, aitzitik euren eskutik eroaten eta pentsarazten digute bizidunak, diodanez, zer sentiezgarrietatik harakoak direla. Xabier Amuriza

Nola, mugatua izatea, zerbait partez **ezeztatzea** baita egiazki eta, mugagabea izatea, izaera jakin baten existentziaren baieztatzea absolutuki, 7. Proposizio soiletik datorkigu edozein substantzia mugagabea izan behar dela. Piarres Xarriton

Nik, beraz, jakintza **ezeztatu** behar izan nuen, honela sinesmenarentzat leku egin ahal izateko. Ibon Uribarri

Hala esan dezake norbaitek eta guk entzun, animalia batzuek gizakia gainditzen dutela bertutez; bat-batean halako baieztapen faltsu eta kaltegarria jasan ezinik sutsuki **ezeztatuko** dugu. Imanol Unzurrunzaga

Frantses prentsa batean agertu da hori baina amerikanoek **ezeztatzen** dute berri hori, erranez ez dela arras egia berri hori baina zenbaitek emendatua. Herria

Guk geure subjektua edo baita oro harrezko sentsuen antolaera subjektiboa ere **ezeztatzen** badugu, orduan espazioan eta denboran dauden objektu guztien antolaera, hartuemanak eta espazioa eta denbora berak ere desagertuko liratekeela, eta agerpen gisa ezin dutela beren baitan existitu, baizik eta gure baitan besterik ez. Ibon Uribarri

Ohartu behar gara orain nahimena deitzen dudala baieztatzeko eta **ezeztatzeko** ahalmena eta ez desira. Piarres Xarriton

Aurrena irainka eraso zidan, nire arrazoiak ezin baitzituen **ezeztatu**; gero isildu egin zen, niri adi. Joxe Austin Arrieta

2 indargabetu, baliogabetu, ezereztu.

-Biharko kontratatu duzuen aldaira-enpresa horretara deitu eta **ezeztatu** eskaria. Oskar Arana

Gaitza nolazpait **ezeztatu** behar dela. Piarres Aintziart

Azkenik suak **ezeztatuko** baitu judu arraza osoa. Michel Oronoz

Nafarroa guziko suhiltzaileak arizan dira sute horren **ezeztatzen**. Herria

Batzu hasten badira muga **ezeztatu** behar dela eta Nafarroa batetaratu, atx! hor badira zaindu beharrak eta hurbiletik! Michel Oronoz

Zure asegurua **ezeztaturik** geratzen da. Xabier Olarra

San Martzialak nahiko ongi iragan dira Irunen, nahiz alardeen inguruko ikamikak ez diren oraino **ezeztatuak**. Herria

Jendea altxatu da injustizia horren kontra, okupatu ditu plazak eta karrikak eta azkenean Auzitegi nagusian erabaki dute **ezeztatzea** hauteskundeen bigarren itzulia. Herria

Poundek, dopina zeharo **ezeztatzeko** bidea Frantziako Kirol arduradun gorenak finkatutako bidea dela ere esan zuen. Berria - Kirola

Jainkoak badu, alabaina, haiek diotenez, gauza guztien suntsitzeko eta **ezeztatzeko** ahala. Piarres Xarriton

Zazpi ahalak eginen zituela idazki horren **ezeztatzeko**. Daniel Landart

Ezin da erresuma bat itxuraldatu, iragana ezabatu, bidegabekeriak **ezeztatu** kriskitin-kraskitin bat eginez. Elena Touyarou

Txinan, esklabotza **ezeztatu** zen. Pello Salaburu

Eztiki eta barna, gorputzeko tentsioak **ezeztatzeko**, lepoa eta bizkarra laxoan, gorputzaren mugimenduaz jabetu. Herria

Izaera pentsatzailearen eta hedatuaren arteko komunitate horren aurretiko (bizitzan) edo komunitatea **ezeztatu** ondorengo (heriotzean) egoerei dagozkien gatazka eta objekzio guztiez erabakia komunitate honi buruzko oharpen hauen ondorio zuzena da. Ibon Uribarri

Aurretiaz zerizan ordenatzaile gorena ezartzen badut oinarrian, orduan izadiaren batasuna egitatean **ezeztatu** egiten da. Ibon Uribarri

Oro harrezko agerpenei begira ezin da denbora bera **ezeztatu**, nahiz eta agerpenak berak denboratik erauz daitezkeen. Ibon Uribarri

Pariseko Batzarrak pribilegioak eta jauretxe-abantailak oro **ezeztatu** zituen, probintzia, printzerri, kantonamendu, hiri bai eta komunitate eskubideak barne. Elena Touyarou

Prefektua gugana etorri baino egun bat edo bi lehenago, alabaina, informazio garrantzitsua iritsi zitzaion poliziari, itxuraz Le Commerciel-en argudioen parte nagusia **ezeztatzen** zuena. Koro Navarro

Grazia egin zidan erantzunak, biziro egoki **ezeztatzen** baitu nork bere gustua, nork bere iritzia, nork bere maitea eta nork bere gauza propio eta bere-berezko mordo bat edukitzera (edo asmatzera) bortxatzen gaituen legea. Iñaki Segurola

Ekonomia kapitalistek, oro har, hobeto funtzionatzen dute truke-tasa finkoekin, zeren diruen trukeari buruzko ziurgabetasuna **ezeztatzen** baita, eta ziurgabetasun hori oso kaltegarria da inbertsioak egiteko orduan. Iñaki Heras

Epaimahaiak hartua zuen hasteko erabakia, eta horrela egin zuen, akats edo hutsune horiengatik prozesua **ezeztatzeko** arriskua zutela jakin arren. Berria - Harian

Baxenabarreko Historia akabatzen da "Assemblée constituante" delakoak lekuko eskubideak -foruak- **ezeztatzen** dituelarik, 1789an. Michel Oronoz

Berdin geroan eginen diren horiek guztiak gain gainetik debekatzen, ezabatzen, **ezeztatzen** ditugu eta debekatutzat, deuseztutzat, errautsitzat hartu behar direla erabakitzen eta aldarrikatzen dugu betikotz. Piarres Xarriton

Leesen artikuluak *Syntactic Structures* ahazteko aukera oro **ezeztatu** zuen. Itziar Laka

Deskolonizazioaren amaieran sorturiko itxaropenak **ezeztatuz**, herrialde aberatsen eta herrialde pobreen arteko errenta-aldeak ez dira azken berrogei urteotan murriztu.Azken hats haren molekula bihurtzen ari zen, bera ere husten, erretzen, **ezeztatzen**, oinarrizko kaosera itzultzen. Koro Navarro

Haren oinetara ahuspezturik, negarrez erregutu zion Amanek juduen kontra zituen asmo zitalak **ezeztatu** eta indarrik gabe utzi zitzala. *British Airways* enpresako eledunak atzo adierazi zuenez, bidaia «segurtasun arrazoiak» zirela eta **ezeztatu** zen. Jose Antonio Mujika

ETAren indarkeriak ez du Anoetan eginiko ekarpena **ezeztatu** baina praktikan horren garapena trabatzen du. Berria - Euskal Herria

Euroagindua oso arma eraginkorra da aurkari politikoak **ezeztatzeko**. Berria - Euskal Herria

3 (era burutu izenondo gisa)

Patagonia muturretik, Australiako bush hartan barna, Tizi Ouzouko eremu gorriak trebeskatuz, Mongoliako estepetaraino, ahantzi gabe Bardeak eta Saharako Peulen bideak, guztiak ama **ezeztatuen** haurrak ginen, arrotz izatearen bildots eraldatuak. Itxaro Borda

Jende ekintzen eta harreman txukunen gibelean, beti bada amodio **ezeztatu** baten itzal luzea. Itxaro Borda

Hartantxe bukatzen ziren neure bihotz gaixoaren asmo **ezeztatuak**, amorante sekretuari esan nahitako hitzik ederrenak. Patziku Perurena

4 ukatu.

Ez nuen horren gezur biribila **ezeztatzeko** lanik hartu. Aingeru Epaltza

Udako gau epeletan maitemintzen zen beti, eta eguna askotan gau horien egia **ezeztatzera** letorkeen gezur multzo bat iruditzen zitzaion. Pako Aristi

Freudek **ezeztatu** egin zuen ikuspuntu hori. Luis Elberdin

Egunkariak **ezeztatu** egin zuen kritika hori argitara eman zuenik. Iban Zaldua

Gauzak onartzen edo **ezeztatzen** ditugunean, ez gara behar bezalakoak. Itxaro Borda

Maimonek argudiook aurkeztu eta **ezeztatu** egiten ditu. Xabier Kintana

Prefektua gugana etorri baino egun bat edo bi lehenago, alabaina, informazio garrantzitsua iritsi zitzaion poliziari, itxuraz *Le Commerciel*-en argudioen parte nagusia **ezeztatzen** zuena. Koro Navarro

Ene abokatuak egin behin-behineko askatasun galdea berriz **ezeztatu** du jujeak. Itxaro Borda

Eta lehengusinak familia berekoak zirela **ezeztatzerik** ez zegoen arren, ez ziren inolaz ere horren antzekoak. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baieztatu edo ezeztatu (3); **baieztatzeko edo ezeztatzeko** (3); **bat ezeztatu** (3); **bat ezeztatzen** (3); **belgradok ezeztatu** (3); **belgradok ezeztatu egin** (3); **da ezeztatu** (3); **dela ezeztatu** (3); **du ezeztatzen** (3); **edo ezeztatu** (5); **edo ezeztatzeko** (4); **edo ezeztatzen** (5); **erabakia ezeztatu** (3); **ere ezeztatu** (5); **esandakoa ezeztatu** (4); **esklabotza ezeztatu** (4); **eta ezeztatu** (6); **eta ezeztatzeko** (4); **eta ezeztatzen** (3); **existentzia ezeztatzen** (4); **ez du ezeztatzen** (3); **ezeztatu arren** (3); **ezeztatu behar** (7); **ezeztatu behar dela** (3); **ezeztatu dira** (3); **ezeztatu ditu** (5); **ezeztatu du** (16); **ezeztatu egin** (28); **ezeztatu egin ditu** (3); **ezeztatu egin du** (7); **ezeztatu egin zuen** (9); **ezeztatu egiten** (8); **ezeztatu egiten ditu** (4); **ezeztatu eta** (10); **ezeztatu gabe** (3); **ezeztatu nahi** (5); **ezeztatu zen** (6); **ezeztatu zituen** (7); **ezeztatu zuen** (23); **ezeztatu zuten** (3); **ezeztatua izan** (10); **ezeztatua izanen** (3); **ezeztatzen bezala** (3); **ezeztatzen da** (3); **ezeztatzen du** (4); **ezeztatzen duela** (4); **ezeztatzen duen** (4); **ezeztatzen dugu** (4); **ezeztatzen dute** (5); **hegaldi ezeztatu** (3); **hori ezeztatu** (3); **legea ezeztatu** (4); **oro ezeztatu** (3); **ziren ezeztatu** (3)

---

ezeztatzaile *izond* ezeztatzen duena.

Bada ulertzeko moduko beste egia bat, eta hura da egia **ezeztatzailea** dei daitekeena, hots, zerbaiten gezurra edo zerbait gezurra dela salatzeko esaten dena. Iñaki Segurola

Haurrak berekin dakarren hitza eta arrazoi **ezeztatzailea** ixilarazteko botatzen du helduak "zergatik eta hargatik". Iñaki Segurola

Filologo edo hitz-maite ona, izan ere, fidakaitz eta sinesgogor amorratua baita dotrinanteekiko, fedekalte eta fedegalgarria, letrazko irudipen engainagarrien **ezeztatzailea**, izpiritu xano sineskorren, ideien eraikitzaile gezur-merkeen eta "bizitzen laguntzen duten" gezur polit kontsolagarrien etsai txarrena. Iñaki Segurola

Vila-Matasentzat horiek guztiak sorkuntzaren **ezeztatzaileak** dira, asmatzen jarraitzeko aukera oro ezeztatzen saiatu zirenak. Berria - Kultura

---

ezeztatze *iz* indargabetzea, baliogabetzea, ezereztea.

Mailharro-k dei egin du, Paueko auzitegiak **ezeztatze** hori ez dezan onhart. Herria

---

ezeztu, ezeztzen **1** du *ad* ukatu; ezereztu.

Presidenteari oposizioko parlamentariek leporatu diotenaren legehaustea baiezteko edo **ezezteko** sei hilabeteko epea dauka epaitegiak, baina atzo bertan hasi zen lanean. Berria - Mundua

Ezeztu egingo ditiagu horiek guztiak, irabazten dugun Egun Handian! Inazio Mujika Iraola

Barrokoa oso garai oparoa izan zen musikari zegokionez Espainian, baina badirudi hori **ezezten** duen nolabaiteko konplexua dagoela. Berria - Kultura

Hori dela-eta, esklabotza **ezezteko** neurriak hartzeko exijitu du, sarri. Berria - Gaiak

Legebiltzarrean irabazi dugu, baina susmoa daukat Europako Ministroen Kontseiluak Parlamentuak hartutako erabaki hori **ezeztu** nahi duela. Berria - Gaiak

2 (era burutua izenondo isa)

Peter ere kartier likits eta **ezeztu** horretan aterpetzen zen, orduak etxean ez, baina polizia autoan gastatzen zituen arren. Itxaro Borda

---

ezfilosofiko *iz* filosofikoa ez dena.

Erromatarra barbaroa da, "arimagabeko, **ezfilosofiko**, arterik gabeko, arrazatsu brutalitateraino, kupidagabeki arrakastari begiratua, kultura heleniarraren eta ezerezaren artean kokatzen da". Joxe Azurmendi

---

ezforma *iz* formarik eza.

Koadrotik bi-hiru metro aldendu behar du ikusleak, egileak aipatzen dituen forma eta **ezforma** horiei atzemateko. Berria - Kultura

---

ezgabekeria *iz*

Ezgabekeriak baztertuko zituen. Ramuntxo Etxeberri

---

ezgai **1** *izond* gai ez dena.

Lehen gerraren garaian heziak ziren militar **ezgai** batzuen agintepean. Ramon Saizarbitoria

Jende askok (eta, egia esan, mediku gehienek), autismoari buruz galdetuz gero, ume nabarmenki **ezgai** baten irudia ematen dizu. Xabier Olarra

Sortze lanak horrelako gauzak zituen: hitz batek obsesionatzen zintuen eta paralizaturik geratzen zinen, aurrera jarraitzeko **ezgai**, ahalegin guztiak eginda ere. Ramon Saizarbitoria

Zentzua ia galdurik geratu zen, ezer zuzenik egiteko **ezgai**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zurbil-zurbil gelditu zitzaidan, izotzak hartua bezala, erreakzionatzeko **ezgai**. Joan Mari Irigoien

Bat-batean, hilkutxa elizan sartzean, abesten jarraitzeko **ezgai** sentitu zirela. Bernardo Atxaga

Honegatik guztiarengatik Jainkoak ahalmena, jakinduria eta borondatea dauzkala aldarrikatzen dugu, atributu horien bitartez Bera ez dela **ezgai**, ezjakin, alderrai ez arduragabea adierazi nahirik. Xabier Kintana

Masa beti da Freuden iritziz ezjakin, alfer eta **ezgai** irrikak arrazoia baliatuz bideratzeko. Markos Zapiain

Zein den giza egoera ulertzea, zertan den Estatua osatzeko gai edo **ezgai**, eta nola elkarrekin ados jarri behar duten euren artean aliatu nahi dutenek. Esteban Antxustegi

Bizitzarako **ezgai**. Iñaki Iñurrieta

Eraikuntzarako **ezgai**, baina erretirorik gabe, enkargu txikiekin jarraitu behar izan zuen. Alberto Barandiaren

Beldur ziren, **ezgai** eta inozo sentitzen baitziren haren aurrean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nahiago izan dut zuri egia erranez zure estimua galdu izanaren malura, gezurraren doilorraz zure estimuaren **ezgai** bilakatu izanarena baino. Jon Muñoz

Lege Vokoniarrak emakumeak oinordeko izateko **ezgai** bihurtu zituenez, Lege Papiarrak kendu egin zuen debeku hori kasu batzuetan.Zaude ziur ezen, nahiz ahula naizen, nahiagoko dudala hil zuk egin duzun hautuaz **ezgai** bihurtu baino. Iñaki Iñurrieta

Herren eta **ezgai** zernahitarako. Hasier Etxeberria

Langileek ohartarazi dute «gatazka konpontzeko **ezgai**» dela Basauriko alkate Rafael Ibarguen. Berria - Ekonomia

Urtarrilaren 4an, garuneko isuria izan zuen buruzagi israeldarrak eta auzitegiek «behin-behinekoz **ezgai**» dela adierazi dute. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan)

Ezgai agiria eman zidaten eta hala nago orduz geroztik. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta ezgai (5); **ezgai dela** (4); **ezgai sentitzen** (4)

ezgaikuntza *iz* ezgaitzea.

Horretaz gain, bigarren kategoriako errudunei beren lanbidean aritzeko erabateko edo aldi baterako **ezgaikuntza**-zigorra ezar liezaieke. Joseba Urteaga

ezgaitasun 1 *iz* ezgaiaren nolakotasuna.

Horrelako irainak, gordinenak bezala kultu-usteenak ere, **ezgaitasun** baten adierazle baizik ez direlako, ezjakintasun itzel baten isla. Jon Alonso

Euskararen **ezgaitasuna** frogatzeko Unamuno-k beti hartzen duen bidea txirotasun lexikalarena izaten da. Joxe Azurmendi

Noraezeko mugimenduak, helburu jakinik gabeak, begiak finko begira egoteko duen **ezgaitasuna** argi erakusten dutenak. Josu Zabaleta

Idealismo problematikoak ez du horrelakorik baieztatzen, baizik eta gugandik kanpoko izate baten esperientzia zuzena frogatzeko **ezgaitasuna** adierazten du. Ibon Uribarri

A ereduko ikasleen euskararekiko **ezgaitasunaren** berri izatean gutxi harrituko ziren, baina batek baino gehiagok ustekabea hartuko zuen B eta D eredukoen emaitzak jakitean. Berria - Harian

Inuzentzia edo tolesgabetasun moduko hori ez zen zintzotasunetik sortua, baizik eta itxurak eta tolesak ("munduaren tresneria ustela", Traherneren hitzetan) ulertzeko **ezgaitasunetik**. Xabier Olarra

Ez zaio inondik ere "ezgai" deitzen bere egiteko izaeran ez dagoena egiten ez duenari, eta horregatik ez diogu gizaki bati ahul esaten mila kintal ezin mugi dezakeelako, eta, hortaz, ez diogu Jainkoari (gorets bedi!) **ezgaitasunik** egozten Bera ezin gorputz daitekeelako, edo bere irudikorik ezin sor dezakeelako. Xabier Kintana

Beldur gara, gozotasun guztiz beteriko janari honek ez ote duen, erabiltzaileon **ezgaitasunagatik**, beren zaporea galduko Askoren artean

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Arraza zuri ariarraren gehiagotasun naturalaren tesia, eta arraza afrikar eta asiarren ezein kultura landutarako **ezgaitasun** naturala. Joxe Azurmendi

Edozertarako ausardia eta **ezgaitasun** harrigarria. Iñigo Aranbarri

Arlotekeria horien egileen izena berehala ahanzten zen, ordea, eta hala hobe gainera, hartara egileon **ezgaitasun** artistikoaren sona ez baita iraunkor bihurtzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Atzerriko gizarte bateko kideak beren etxean "bertakotzat" estigmatizatzean, zapaltzailea gizatasuna ukatzen ari zaie haien **ezgaitasun** politiko eta ekonomikoa baietsiz. Iñaki Mendiguren

Lyssenkoren adierazpenak irakurtzean, garbi ageri da, azal eta mami, haren **ezgaitasun** erabatekoa, haren ezjakintasuna, biologiarik oinarrizkoenari buruz ez ezik, baita zientzia-jardunbideari berari buruz ere. Juan Garzia

Orduan barneko **ezgaitasunera**, arrazoiketa linguistiko-historikoaren ildora, pasatzen gara. Joxe Azurmendi

Euskararen berezko **ezgaitasunaren** arrazoi gehigarria, Joxe Azurmendi

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sistema horrek asegabetasun eta halako **ezgaitasun** maila handi bat eragiten duela erakundeetan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mahai gainean inoiz garbi aitortzen ez diren azpiarrazoi edo suposizioekin operatzen dela euskararen **ezgaitasun** frogan. Joxe Azurmendi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako gizarte batean galtzailearen gizatasuna ukatzeak bere erlijio-**ezgaitasuna** baieztatzearen forma hartuko luke. Iñaki Mendiguren

Kultur **ezgaitasuna** baieztatzea. Iñaki Mendiguren

Hasieran gizakien izpirituan izaten den buru-**ezgaitasuna**. Xabier Kintana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ezgaitasunaren arrazoi** (3)

ezgaitu, ezgai(tu), ezgaitzen da/du *ad* gaitasuna galdu, gaitasuna kendu.

Juppek adierazi zuenez, **ezgaitzen** badute, politika utziko du. Berria - Mundua

Bake-psikologiak, estatu unibertsal baten babespean, **ezgaitu** egiten ditu gobernariak beren ondare politikoari eusteko zereginerako. Iñaki Mendiguren

Hiltzailea ezin zen ukitu, ez eta berarekin hitz egin ere, orbanduta edo **ezgaituta** geratu gabe. Iñaki Iñurrieta

Espetxe zigorra, isuna, eta bizitza osorako **ezgaitua**. Edurne Elizondo

Guztiek gaixotasun-agiria jaso dute eta, beraien arabera, «ordezko **ezgaituek**» egiten dute lana. Berria - Ekonomia

Guztiek gaixotasun-agiria jaso dute eta, beraien arabera, «ordezko **ezgaituek**» egiten dute lana. Berria - Ekonomia

Fiskaltzak zortzi hilabeteko kartzela zigorra jartzeko eta isun bat ordaintzeko eskatu zuen **ezgaitzea** ekiditeko. Bederatzi urte emanak zituen Marrisek ume **ezgaituen** irakasle, baina ordu arte ikusitakoak ez zion eman Stephenen irakasle izateko behar zuen prestakuntzarik. Berria - Mundua

ezgaraiko *izlag/izond* garaiz kanpokoa.

Solidario gara batzuetan, jakin gabe hala garenik ere, ez dakigun jendearekin eta **ezgaraiko** heroiekin, urte askoren buruan jaio edo aspaldi hil ziren heroiekin solidario, aspaldi jaioko ziren eta urte askoren buruan hilko ziren haiekin ere solidario. Harkaitz Cano

Hara han **ezgaraiko** bisitariak! Migel Angel Mintegi

Gaixoen indar eta izurritasun hau guztia edo ortzian zehar kanpotik dator, hodeiak eta lainoak bezala, edo sarritan lurrean bertan biltzen eta sortzen da, zoru hezea, euri eta bero **ezgaraikoen** eraginez, usteltzen hasten denean. Xabier Amuriza

ezgauza 1 *iz* gauza hutsala, ezerezkeria.

Atseginaren **ezgauzak** Jaungoikoagana bultzatzen gaitu. Imanol Unzurrunzaga

Izan ere, hor bera eta berekin batera berak baldintzatzat duen guztia **ezgauza** bat da. Ibon Uribarri

Bertutea garaien eta egoeren arabera iragankorra den zerbait bihurtuko luke, ezein erregelatan erabilgarria ez den **ezgauza** ekibokoa. Ibon Uribarri

2 *izond* gauza ez dena.

Txikia, erkina, **ezgauza**. Ume koxkor bat. Xabier Mendiguren Elizegi

39 urterekin, eta bizkarra eskastua zuela, **ezgauza** deklaratu zuten hegazkin pilotu izateko. Josu Zabaleta

Euskalkia **ezgauza** omen da horretarako. Koldo Zuazo

Euskara Batua ez zela euskalkiak **ezgauza** zirelako asmatu; euskalki desberdinetako hiztunak bata bestearekin erraz eta eroso ulertzeko asmatu zen. Koldo Zuazo

Ezgauza nintzela pentsatu nuen halako emakumea neureganatzeko. Hasier Etxeberria

Eta **ezgauza** zen, erabat, mina bazter uzteko, eta maitemintzen zen bakoitzean sufrimendu saminen eta krudelenek hartzen zuten. Fernando Rey

Hartara, kaskezurra urratzeko punttadan neukan, minarez minez, eta gorputza egun berriak dudarik gabe gordetzen zizkidan ustekabe desatseginei kontra egiteko **ezgauza**. Aingeru Epaltza

Zain geratu zen segundo batzuez, mugitzeko ere **ezgauza**. Harkaitz Cano

Ez ziola batere gorrotorik, gizagaixo bat besterik ez zela, maitatzeko **ezgauza** ; bera ere biktima, azken batean. Juan Kruz Igerabide

Guztiz geldiro jaten zuen, besoa mugitzeko ere ia **ezgauza** balitz bezala. Josu Zabaleta

Uste zuen espainiarra, zientziarako nahiz zibilizaziorako **ezgauza** izanagatik, aberkoi sutsua izango zela behintzat, eta ez zen halakorik. Josu Zabaleta

Neure emaztea gabe **ezgauza** bainaiz ni, oihalik gabeko aterkia edo belaontzia bezalakoa. Hasier Etxeberria

Zer zarete ba **ezgauza** , bakarrik utzi ezinak! Anjel Lertxundi

Arbel meatzean aritu zen lanean, harik eta, 50 bat urte zituela, medikuak silikosia diagnostikatu eta lanerako **ezgauza** izendatu zuten arte. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero entzun genuen bere ohetik tifoi baten antzeko zerbait heldu zela pixkanaka indartsu putz eginez, eta birao ekaitz bat lehertu zen zeruak eta lurrak sortu zituen Jainko **ezgauzaren** aurka. Pello Lizarralde

Gogor ekin behar herri mugimendu osoari beronen indarrak mugiarazten baititu administrazioa eta kudeatzaile **ezgauzak** . Berria - Euskal Herria

Milaka milioi gastatzen ditugu armetan eta armadak eta politikari ustel eta **ezgauzak** mantentzen. Luis Elberdin

Norengana joko zuen bada hark bere gizon zaharrarengana ez bazen, ergel **ezgauza** izan bazen ere lehenago? Oskar Arana

Jakizue, ikas ezazue behingoz, ontzi **ezgauzetan** sinesten ez duenaren nabigazioa nekez heltzen dela ikusi eta entzun eta ukitu egiten den mundua baino haratago. Anjel Lertxundi

Euskalkia **ezgauza** omen da horretarako. Koldo Zuazo

Itsasoko belarrez, auka txikiz, zuretako mangolino janezinez, txirlatxo **ezgauzez** eta halakoez estalita eta uretako mamarruek plagatuta. Edorta Jimenez

Suteak hartutako basoa itzaltzen ni bakarrik saiatu izan banintz bezain **ezgauza** sentitzen nintzen nire umore gaizto hura itzaltzeko. Jon Muñoz

Ni baino gazteagoa, ni baino dorpeagoa eta **ezgauzagoa** , baina heu, eta ez ni, zuzendari. Hasier Etxeberria

Egingo nuke egolatra, axolagabe eta ohean **ezgauza** hutsa naizela pentsatzen dagoela. Patxi Iturritegi

Arazoa zen horrelako kontuetarako **ezgauza** hutsak zirela. Jon Arretxe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
aurre egiteko ezgauza (3); **bezain ezgauza** (3); **egiteko ezgauza** (11); **eta ezgauza** (4); **ezgauza izan** (3); **ezgauza zirelako** (3)

---

ezgizatiar *izond* gizagabea, ankerra, gizatiartasunik gabea.

Bi irtenbideak, desberdinak izateaz gainera, ankerrak ere badira, **ezgizatiarrak** , eta gure gaurko ikur nagusia gizatasuna da, beste ezeren gainetik. Karlos Linazasoro

Aldi guztietan ulertu ohi da, arriskutsu bezain **ezgizatiar** dela senar-emazteak atzera egiteko modurik gabe uztartzea, batak bestea itoa eta zanpatua. Andres Urrutia

---

ezhikotasun *iz* ezohikoa denaren nolakotasuna.

Ezohikotasunak , azken buruan, gertaera baten jazoera-frekuentzia txikiari egiten dio erreferentzia, besterik ez. Berria - Gaiak

Hara joaten ginen aldiro, aitak irudiaren **ezohikotasuna** goratu behar izaten zigun, baina bertan zeuden guztiek entzuteko moduan: [...]. Anjel Lertxundi

Dena ohiz kanpokoa zen, baina neure pozaren baitara bilduegi nengoen, egoeraren **ezohikotasunaz** konturatzeko. Anjel Lertxundi

Zirgari eta marinel batzuk biltzen hasita zeuden emakume bat paraje haietan ikustearen **ezohikotasunak** erakarrita. Anjel Lertxundi

Minutu labur haiek ulergaitzak ziren berarentzat, bazirudien denboratik eta beraren bizitzatik kanpo zeudela, eta exekuzioa bera, bere **ezohikotasun** ikaragarriarekin, bere zentzugabetasun erogarriarekin, ezbehar arina iruditzen zitzaion. Jose Morales

---

ezhistoriko *izond* historikoa ez dena.

Esplikazio horrek, balio izatekotan, "herri historikoentzat" balio lezake, horiek beraiek gogoko duten lurraz jabetzen baitira; balio ote du Hegel-en herri **ezhistorikoentzat** (gizadiaren gehien-gehiengoa)? Joxe Azurmendi

Herri **ezhistoriko** horiek, esango digu Ortega-k, lurraren produktuak dira zinez, eta ez lurra aldarazi eta ez historia egiten dute; hots, natura dira, ez izpiritu. Joxe Azurmendi

Arima korporal hori natura soil bezala ulertu behar dugu (potentzia edo ahala); **ezhistorikoa** , hortaz. Joxe Azurmendi

Lur, etxe, arraza afrikar **ezhistorikoa** ? Joxe Azurmendi

---

ezhistorikotasun *iz* ezhistorikoa denaren nolakotasuna.

Inola ere onartzeko prest ez dagoena da, Espainiako historia arraza gaztelauak ez, beste batzuek egin ahal izan dutela, beren armarri guztiekin ere etxeetako horman luzitzen; hiria ezagutu ere egiten ez duten jende ruralak (ruralismoa, ezhiria, **ezhistorikotasuna** da; ikusiko dugu Andaluzian berriro), jende begetalak. Joxe Azurmendi

---

ezik *junt* 1 *(ezkerrean aditzaren era burutua duela).* ezean.

Ez zen erregearen aurrera agertuko, erregeak bera desiratu eta deitu **ezik** . Elizen arteko biblia

Seietarako deitu **ezik** ez zuela inoiz deituko. Bernardo Atxaga

Bertze batek, bizirik ailegatuta ere, nekez ikusiko du noski biharamuna, laster baino lehen bertze leku aproposagoan egokitu **ezik** . Aingeru Epaltza

Esaera osorik gogoratu **ezik** , laburrean ere gorde izan da hainbat bailaratan: Maiatz pardo, urte haretan gari ta ardo. Pello Zabala

Zeren, Lukreziok formulatzen duenez, ´izaki batzuk desagertu **ezik** , berrientzat ez dago tokirik´. Xabier Amuriza

Eta, xumeak direnez gero, gogoak ezin ditu, saiatu **ezik** , argi ikusi. Xabier Amuriza

Edota arrazoimenaz baliatu **ezik** , nola jakingo zenuke arrazoimena duzula? Imanol Unzurrunzaga

Zeren eta gauza hutsezinak aurrezagutu **ezik** baliogabea izango bailitzateke. Imanol Unzurrunzaga

Aurretik elkartze bat burutu **ezik** , eta ezer ez dela aldatzen aurreko elkartzerik gabe. Xabier Amuriza

Ez baitago barrena hustutzerik zeharo biluztu **ezik** . leiho horretatik seguru Bilbo ikusiko litzatekeela, Santutxuko paisaia urbano bat, eta eraikinek tapatu **ezik** igual Otxarkoaga edo beste bazterrauzo bizi eta humanoren bat aldapan. Joxerra Garzia

Aldatzen den orok ez du izatea bere horretan gordetzen; eta aldakor den oro, aldatu **ezik** ere, lehen zena ez izatera irits daiteke. Imanol Unzurrunzaga

Gure neskamea alde batetik legebidetsua da eta nik galdetu **ezik** , ikusliarra nor den ez dit esaten. Gotzon Garate

Zokor emankorrak goldez irauli eta, ernamuinak azaleratze-ko, lurzorua zehetu **ezik** , eurenez ezingo lukete aura garbietara irten. Xabier Amuriza

2 *ez ezik*

Alde egin aurretik, gela **ez ezik** , pisu osoa arakatu du poliziak. Rafa Egiguren

Ikastetxe **ez ezik** , ostatu ere bazen Klausenhof hori. Joxerra Garzia

Ezer ematen ez duen merkataritza **ez ezik** , galerak sortzen dituena ere baliagarria izan daiteke. Iñaki Iñurrieta

Eskuak **ez ezik** , izterrak ere zabaldu zizkidan. Aingeru Epaltza

Gero eta sarriago joaten zen bere lur-sailak eta baso puskak bisitatzera, maizterrekin hitz egitera, Rubikya lakuko jauregi zaharrean egunak **ez ezik** , astebeteak ere

igarotzera. Felipe Juaristi

Etsaiak **ez ezik**, hiltzaile garbi-garbiak ikusten zituen gure artzainak dolorez, non eta tokian berean. Iñaki Segurola

Boterea **ez ezik**, bizia ere galtzen du benetako maitasuna defendatzeagatik. Berria - Kultura

Estatuak, garai hartan, armategiak eta intendentzia-zerbitzuak **ez ezik**, falta zituen banku zentrala, altxortegi publikoa eta funtzionario gaituak ere. Koro Navarro

Ile adatsa **ez ezik**, betazal eta betileak ere beilegiak zituen. Bernardo Atxaga

Hizkuntza akademiek **ez ezik**, gobernuek eurek ere erabaki zehatzak hartu behar izaten dituzte sarri. Koldo Zuazo

Filosofia, jakintza bat **ez ezik**, bere arau eta arrazoibideekin, bizikera bat da, bere aginduekin eta, batez ere, emozioen kontrolarekin. Xabier Amuriza

Ahalgarria **ez ezik** erraza ere balitzatekeela. Ibon Uribarri

Oinarri horren gainean, mundu bat altxatzen du, hoberena **ez ezik**, posible den bakarra iruditzen zaiona. Juan Garzia

Kristau idazlerik bikainenetakoa **ez ezik**, Erdi Aroko lehen filosofoa ere bera izan zen. Imanol Unzurrunzaga

Honen bekatua bikoitza izan zen, zeren agramondarra **ez ezik** luthertarra ere izan baitzen, eta bere burua hil baitzuen ezin koldarkiago. Joan Mari Irigoien

Neska batzuk -mutil handia **ez ezik**, egokia zen Ubanbe- irrika hasi ziren. Bernardo Atxaga

Neure kasuan, txibato **ez ezik**, idatzi gabeko lege zaharrenaren kontrako traidore. Xabier Mendiguren Elizegi

Txindurri beltzak **ez ezik**, zuriak ere ugari dira Indian. Gotzon Garate

Beraz, terroristak **ez ezik**, abertzaleak, euskaltzaleak, intsumisoak, eta denak gara susmagarri, susmoa beste frogarik gabe. Joxerra Garzia

Garaiko zentsura gaindituz, berak sortu eta zuzendutako aldizkarian Camilo Jose Celak galizierazko testuak **ez ezik** katalanezkoak ere argitaratu zituela ekarri zuen gogora, atzo, Maria Castañok. Berria - Kultura

Nik **ez ezik**, jentilen eliz elkarte guztiek ere esker ona zor diete. Elizen arteko biblia

Astearte buruzuri batean ohi zenez, Antonio Musu-tristeri **ez ezik**, ostatuak dozena erdi bezerori ematen zion aterpe. Aingeru Epaltza

Pobretasunak, Frantziskorentzat, ondasunei **ez ezik**, jabego orori uko egitea esan nahi du. Askoren artean

HOS teorema, premisengatik **ez ezik**, desegokia da ekoizpen-faktoreen prezioen berdintzeari dagozkion ondorioengatik ere. Koro Navarro

Beharrezkoa dugu fedea kristau bizitzan **ez ezik** gizarte bizitzan ere. Imanol Unzurrunzaga

Esana dizut, urte zaharrean **ez ezik** edonoiz dela bisitagarria gure herria. Koldo Izagirre

Bertsolaritza aldetik **ez ezik** etnografia, antropologia eta filologia aldetik badute nondik probetxua atera. Berria - Kultura

Kontu handia izan behar da liberal terminoarekin, oso bestela ulertzen baita hitz hori jakintza esparru desberdinetan **ez ezik**, baita herrialde desberdinetan ere. Iñaki Heras

Jainkoaren gizona handikien aurrean **ez ezik**, maila bereko eta beheragokoekin ere apal agertzen zen. Askoren artean

Hala ere, judizioetan **ez ezik**, adigaietan ere azaltzen da hauetako batzuen apriorizko jatorria. Ibon Uribarri

Harentzat **ez ezik**, guretzat ere makur handia da, oso urri baikabiltza patataz, gurinez eta marmeladaz. Josu Zabaleta

Edertasunaz **ez ezik**, bikaintasunaz, piktorikoaz, eta beste horrenbeste kontzeptuz ere hasi zen arduratzen filosofia imitazioaren kontzeptua gainditzeko ahaleginetan. Askoren artean

Prozesu horretan, autodeterminazio eskubidearen garapenari eta lurralde batasunaren formulazioari buruz **ez ezik** euskalduntze plangintzaz, eredu eta plangintza sozioekonomikoaz edota Euskal herriaren desmilitarizazioari buruzko hitzarmena lortuko zen. Berria - Euskal Herria

Hurrena, anai Jaxintorengana jo nuen, anaiatzat **ez ezik**, gidari espiritualtzat ere -nolabait esatearren- jotzen bainuen azken bolada hartan. Joan Mari Irigoien

Eta gure kontra **ez ezik**, zuen menpeko lurraldeen kontra ere jo dute. Elizen arteko biblia

Adimen hutsa enpirikoa den orotatik **ez ezik**, sentimen orotatik ere bereizten da osorik. Ibon Uribarri

Josu R-ren begietan, Fernando eta Orrondo, umore oneko **ez ezik** txispatuta ere bazeuden. Pedro Alberdi

Aurkikuntza horrek, arazoaren funtsa zein zen argitzeko **ez ezik**, nahasmendua kokatzeko ere balio izan zuen. Xabier Olarra

Ezagutzaren "egonkortasun" hori, ordea, are gehiagora iristen da: izan ere, objektuak ezagutzeko **ez ezik**, identifikatzeko ere gai gara. Josu Zabaleta

Hala ere, hau era positiboan erabil daiteke, h[au] d[a], faltsutasuna eta errakuntza (hau kontraesanean funtsatzen den heinean) baztertzeko **ez ezik**, egia berrezagutzeko ere bai. Ibon Uribarri

Gerora, herrien bizigabetzearekin, hustutzearekin, lo-herri huts bilakatzearekin, ederki ezkutatu ziren borrokarako poz horiek denak, beste gauza mordo bat **ez ezik**. Iñaki Segurola

Bizar-makina elektrikoa hartu nuen karteratik, bizarra kentzearren **ez ezik** baita ordu-laurden batez bakarrik egotearren ere. Joxe Austin Arrieta

3 *izan ezik*

Nor Jainko, Jauna **izan ezik**?

Guztiak bereizketarekin ados, PP **izan ezik**. Berria - Euskal Herria

Guztiak, ekintzailea **izan ezik**, SCIRIko zaindari taldeko kideak ziren. Berria - Mundua

'L'Humanite'-k **izan ezik**, Frantziako egunkari nazional gehienek arbuiatu dute erreferendumaren emaitza. Berria - Harian

Gehiegizkoa da eskatzen duzuna: ezin dizu inork erantzunik eman, jainkoek **izan ezik**. Elizen arteko biblia

Baietz esan zuten denek, Navigiok **izan ezik**. Imanol Unzurrunzaga

Hantxe hil ziren kiskalita denak, bat **izan ezik**. Jon Muñoz

Dena gora eta gora, soldatak **izan ezik**. Berria - Ekonomia

Inkesta gehienek, oposizioaren komunikabideenak **izan ezik**, Chavez dute garailetzat, botoen %57rekin, hots, kargutik ez kentzearen botoarekin. Berria - Mundua

Edozer egingo nuke osasuntsu egoteko, hiru gauza **izan ezik**: ariketa fisikoa egitea, goiz jaikitzea eta arduratsua izatea. Berria - Gaiak

Baina osasuntsu garenok egun guztietan egiten dugu barau, igandeetan eta Jaunaren Jaiotza egunean **izan ezik**. Askoren artean

Bizkaian **izan ezik**, herrialde guztietan handitu egin da biztanle kopuruaazken hamarkadan. Berria - Euskal Herria

Nafarroan **izan ezik** (%2,9), beste hiru herrialdeetan aurten pilaturiko inflazioaren igoera %3tik gora dago jada. Berria - Ekonomia

Zelai erditik jokatu zuten jokalari guztiak (Tiko **izan ezik**) ez ziren fin aritu. Berria - Kirola

Adar horietan, gainera, emakumezkoen langabezia gizonezkoena baino txikiagoa da, zerbitzu soziokulturaletan **izan ezik**. Berria - Euskal Herria

Urtean behin edo bitan, denbora jakin batean, izendatutako lekuan biltzen dira kapitulua egiteko, lurrez urrutiegi edo itsasoz bestaldetik daudenak **izan ezik**. Askoren artean

Azkar hazten den landarea da, eta, poloetan **izan ezik**, edonon haz daiteke, zaindu beharrik gabe. Berria - Gaiak

PSE-EEko arduradunak **izan ezik**, beste alderdi guztietakoak bilduko dira Bilbon. Berria - Ekonomia

Ez zaio inori heriotza-zigorrik ezarriko bi edo hiru lekukoren aitorpenaz **izan ezik**. Elizen arteko biblia

Aralar **izan ezik**, beste alderdiek ez daude eskaintzari baietz esateko prest. Berria - Euskal Herria

Eraikin horretan zeuden beste taldeei egoitza bat utzi die Udalak, Barakaldoko talde antimilitaristari eta Langabeen Asanbladari **izan ezik**. Berria - Ekonomia

PPCrekin **izan ezik**, Legebiltzarreko alderdi guztietako diputatuekin bildu dira Elkarri-ko ordezkariak. Berria - Euskal Herria

Hemen ez da sendagilerik izan, gutxieneko zerbitzuek behartutakoa **izan ezik**, eta, beraz, zerbitzua ez da ohikoa izan. Berria - Harian

Mundu osoko ordezkariak, AEBetakoak **izan ezik**. Berria - Gaiak

Ondoren John Frusciante, kirol-jertse grisaz, txanoa jantzita, Telecaster batez (horrelako batzuk erabili zituen), eta azkenik Anthony Kiedis kantaria, dena beltzez, gorbata urdina **izan ezik**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

artean ez ezik (9); **aurka ez ezik** (8); **bat ez ezik** (24); **bat izan ezik** (111); **batean izan ezik** (19); **batek izan ezik** (15); **batzuetan izan ezik** (9); **batzuk izan ezik** (29); **bera ez ezik** (11); **bera izan ezik** (10); **berak izan ezik** (7); **bi izan ezik** (7); **bidez izan ezik** (9); **bitartez izan ezik** (8); **buruz ez ezik** (10); **eman ez ezik** (8); **euskaraz ez ezik** (7); **ez**

ezik (2841); **ez ezik baita** (12); **ez ezik beste** (38); **ezik baita** (12); **ezik beste** (53); **ezik ez** (13); **ezik gainerako** (11); **gisa ez ezik** (11); **herrian ez ezik** (9); **hitzez ez ezik** (7); **hori ez ezik** (16); **hori izan ezik** (8); **ikusi ez ezik** (7); **izan ezik** (1640); **izan ezik beste** (14); **izan ezik gainerako** (7); **kasuan izan ezik** (16); **kasuetan izan ezik** (7); **nahi ezik** (19); **onartu ez ezik** (8); **pp izan ezik** (8); **ppk izan ezik** (10); **zu izan ezik** (8)

---

ezikasi 1 *izond* ikasi ez duena.

Hemen ere egoitza bera, fedearen eta fedegabearen arteko dialektika borrokalariak elkarri josten baititu berdin nekazari **ezikasia** eta fraile eskolatua. Piarres Aintziart

Orain, berriz, azken aldi honetan, gizon pobretxo, mespretxatu eta **ezikasi** honen bidez argitu du -eta Frantzisko seinalatu zuen behatzez herri osoaren aurrean-. Askoren artean

Mujik errusiarrak hain **ezikasiak** izanik, zein luzaz borrokatu behar izan zuen haiekin galtza alemaniarrak jantz zitzaten eta, neurri batean behintzat, gizakiaren duintasun gailenaz ohar zitezen. Jose Morales

Baina **ezikasiak** zirenez eta munduari uko egiteaz Ebanjelioak dioena aurkitzen ez zekitenez, Jaunari debozioz otoitz egin zioten, liburua lehen aldiz irekitzean bere borondatea ager ziezaien. Askoren artean

2 (izen gisa)

Gure erresuma honetan denak dira horrelakoak: aitoren semeak, mujikak, ikasiak eta **ezikasiak**. Jose Morales

Ezikasien hezitzaile eta ezjakinen irakasletzat, eta hori, ezagutzaren eta egiaren adierazpena legean duzulako. Elizen arteko biblia

Bere burua ikusi zuen: giza irudi barregarri bat, izeben mandatari gisara jokatzen zuena, asmo oneko sentimental urduri bat, **ezikasien** aurrean hitz-harro, eta bere haragizko grina pailazo baten duinak idealizatzen zituena: ispiluan barrundatu zuen tipo tentel errukarria. Irene Aldasoro

---

ezikasitasuna *iz* ezikasiaren nolakotasuna.

Baina "ezikasia den ezein gizaki ez da ikasia" badiot, orduan esakunea analitikoa da, zeren (**ezikasitasunaren**) ezaugarria subjektuaren adigaiaren osagarria baita, eta honenbestez, esakune ezeztailea kontraesanaren esakunetik abiatuta zuzenki argitzen da "aldi berean" baldintza gaineratzea beharrezkoa izan gabe. Ibon Uribarri

---

ezikusi 1 *iz* ezikusiarena egitea.

Hainbat pasarteren zuzenketak eginez, izkutapen zuhurrak, **ezikusi** aproposak, ondorio larrienak arinduz edo kenduz. Patziku Perurena

Gero, neska batek, poliki, botatakoa bildu eta kurtsoreari eragin dio, ferekan iduri, Keparen so erreari **ezikusi** nabarmenean. Aingeru Epaltza

2 (adizlagun gisa)

Atzo, hiriko biztanleak **ezikusi** eta ezentzun pasatzen ziren emakumearen ondotik, egiteko handiagoak dituztenen itxuran. Aingeru Epaltza

3 (aditz gisa)

Hain da nabaria hori, alfer-alferrik baita **ezikusi** edo ostendu guran ibiltzea. Joxe Azurmendi

4 *ezikusi egin*

Alferrik saiatuko naiz sentitzen dudan kontzientzia ausikiari **ezikusi egiten** , baldin eta traizioa eta azpikeria baimentzen baditut lege sakratuetan, jendearen arteko konfiantzaren eta giza moralaren monumentu diren legeetan. Juan Martin Elexpuru

Nazio askotan, ikusia **ezikusi** eta entzuna ezentzun itxura **eginez** , poliziek dirua irabazten dute. Gotzon Garate

· Marrazten zenion irudi hori erretratu zintzoa edo ankerra izan, **ezikusi** eta entzungor egitea erabaki nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezikusi nabarmena eginez, bere ondoan zetzan jostailu elektronikoa hartu eta hari josi zizkion begiak. Aingeru Epaltza

4 *ezikusia egin*

Herritar baten idia nahiz ardia galduta ikusten baduzue, ez egin **ezikusia** , itzuli jabeari. Elizen arteko biblia

5 *ezikusiarena egin*

Badakizu, Harry Potter tartean dagoenean denok **egiten** dugu pixka bat **ezikusiarena** . Iñaki Mendiguren

Hori ezin da ezkutatu, ezin daiteke **ezikusiarena egin eta** ezta inolako jarrera arduragaberik hartu ere. Berria - Euskal Herria

· Arrotza baldin bada, **ezikusi** edo **ezjakinarena** egingo dugu, baliteke. Jenaro Garate

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

eta ezikusiarena (9); **eta ezikusiarena egin** (5); **ezikusi egin** (4); **ezikusi eginda** (3); **ezikusi egiten** (4); **ezikusi eta** (3); **ezikusia egin** (9); **ezikusia eginez** (6); **ezikusia egitea** (4); **ezikusia egiten** (16); **ezikusiarena egin** (17); **ezikusiarena egin eta** (3); **ezikusiarena egitea** (3); **ezikusiarena egiten** (10)

---

ezin *(ikus beheko konbinatorian* eskatu *aditzaren agerraldi maizkoenak).*

1 *ezin hobe* *(ETCn **3.442** agerraldi; orobat **ezinhobe** ETCn **275** agerraldi eta **ezin hobeto** ETCn **1.631** agerraldi; ikus beheko konbinatorian ezin hobe-ren agerraldi maizkoenak)*

2 *ezinezko* (ikus beheko konbinatorian ezinezko-ren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

adierazi ezin (10); **ahaztu ezin** (14); **ahotik ezin** (37); **ahotik ezin utzia** (15); **aitak ezin** (15); **aldatu ezin** (17); **ama ezin** (11); **amak ezin** (12); **arabera ezin** (10); **argitu ezin** (12); **arte ezin** (75); **arte ezin izan** (28); **artean ezin** (42); **asko ezin** (11); **askok ezin** (39); **askok ezin izan** (11); **askotan ezin** (12); **asmatu ezin** (14); **atera ezin** (12); **aukera ezin** (101); **aukera ezin hobea** (80); **aurka ezin** (12); **aurkeztu ezin** (11); **aurkitu ezin** (22); **aurrean ezin** (31); **aurrera ezin** (21); **auzia ezin** (10); **azaldu ezin** (17); **azkenean ezin** (18); **bada ezin** (10); **badakizu ezin** (10); **baimenik gabe ezin** (10); **baina ezin** (1308); **baina ezin da** (84); **baina ezin dira** (17); **baina ezin ditugu** (18); **baina ezin du** (57); **baina ezin dugu** (69); **baina ezin dut** (77); **baina ezin dute** (17); **baina ezin duzu** (12); **baina ezin esan** (14); **baina ezin gara** (13); **baina ezin izan** (254); **baina ezin izango** (14); **baina ezin naiz** (13); **baina ezin nuen** (45); **baina ezin zen** (20); **baina ezin zuen** (64); **baina ezin zuten** (14); **baina hori ezin** (13); **baina inork ezin** (17); **baina nik ezin** (42); **baina orain ezin** (17); **bainan ezin** (21); **baino ezin** (379); **baino ezin da** (29); **baino ezin daiteke** (12); **baino ezin daitekeela** (10); **baino ezin du** (19); **baino ezin dugu** (10); **baino ezin dute** (15); **baino ezin izan** (48); **baino ezin zen** (12); **baino ezin zuen** (12); **baitan ezin** (10); **baizik ezin** (187); **baizik ezin izan** (25); **bakarrik ezin** (34); **barreari ezin** (12); **bat baino ezin** (11); **bat besterik ezin** (11); **bat ere ezin** (15); **bat ezin** (162); **bat ezin da** (38); **bat ezin dela** (11); **batean ezin** (44); **batek ere ezin** (18); **batek ezin** (149); **batek ezin du** (61); **batek ezin duela** (13); **batera ezin** (19); **batez ezin** (10); **bati ezin** (23); **bati ezin zaio** (12); **batzuek ezin** (13); **batzuetan ezin** (18); **batzuk ezin** (34); **batzuk ezin dira** (10); **bazekien ezin** (11); **begiak ezin** (17); **behintzat ezin** (10); **bera ere ezin** (22); **bera ezin** (41); **bera ezin da** (10); **berak ere ezin** (24); **berak ezin** (65); **berak ezin zuen** (10); **beraz ezin** (16); **berean ezin** (23); **berriak ezin** (10); **bertan ezin** (11); **beste inork ezin** (14); **besteak ezin** (13); **bestela ezin** (36); **besterik ezin** (262); **besterik ezin da** (20); **besterik ezin du** (13); **besterik ezin dugu** (23); **besterik ezin dut** (11); **besterik ezin egin** (14); **besterik ezin izan** (25); **bete ezin** (20); **beti ezin** (15); **bezala ezin** (18); **bidea ezin** (10); **bidez ezin** (13); **bitartean ezin** (19); **bitartez ezin** (10); **bizi ezin** (14); **bizitza ezin** (17); **burua ezin** (20); **buruari ezin** (10); **burutik ezin** (17); **burutik kendu ezin** (11); **buruz ezin** (19); **da eta ezin** (38); **da ezin** (76); **da ezin dela** (12); **dago eta ezin** (10); **dago ezin** (15); **dagoeneko ezin** (17); **dela eta ezin** (12); **dela ezin** (28); **den ezin** (17); **dena ezin** (41); **denak ezin** (43); **denbora ezin** (11); **denik ezin** (16); **deus ezin** (21); **dio ezin** (19); **dira eta ezin** (21); **direla ezin** (15); **du ezin** (47); **duen ezin** (11); **duenak ezin** (23); **dut ezin** (18); **dute ezin** (23); **edo ezin** (49); **eduki ezin** (13); **egin ezin** (131); **egoera ezin** (37); **egon ezin** (26); **egun ezin** (26); **elgar ezin** (10); **elkar ezin** (11); **emaitza ezin** (19); **emakumeak ezin** (15); **eman ezin** (58); **entzun ezin** (10); **erabili ezin** (15); **eraman ezin** (17); **erantzuna ezin** (10); **erantzunik ezin** (10); **ere ezin** (792); **ere ezin da** (63); **ere ezin dira** (16); **ere ezin du** (37); **ere ezin dugu** (22); **ere ezin dut** (23); **ere ezin dute** (21); **ere ezin izan** (87); **ere ezin izango** (32); **ere ezin nuen** (11); **ere ezin zen** (10); **ere ezin zuen** (30); **ere ezin zuten** (10); **esan ezin** (83); **esan ezin ahalako** (31); **eskubideak ezin** (12); **eskuratu ezin** (13); **estatuak ezin** (15); **eta berak ezin** (10); **eta ezin** (2009); **eta ezin aritu** (16); **eta ezin da** (118); **eta ezin daiteke** (10); **eta ezin dela** (20); **eta ezin dira** (26); **eta ezin ditu** (11); **eta ezin ditugu** (10); **eta ezin du** (56); **eta ezin duela** (15); **eta ezin dugu** (70); **eta ezin dut** (61); **eta ezin dute** (27); **eta ezin duzu** (13); **eta ezin esan** (17); **eta ezin hobeto** (19); **eta ezin izan** (198); **eta ezin izanen** (12); **eta ezin izango** (55); **eta ezin izaten** (14); **eta ezin jakin** (13); **eta ezin konta** (23); **eta ezin naiz** (23); **eta ezin nuen** (46); **eta ezin zen** (29); **eta ezin zuela** (20); **eta ezin zuen** (55); **eta ezin zuten** (15); **eta hau ezin** (11); **eta hori ezin** (58); **eta horregatik ezin** (10); **eta horrela ezin** (22); **eta inork ezin** (27); **eta nehork ezin** (12); **eta nik ezin** (53); **eta orain ezin** (20); **etengabeen ondorioz ezin** (20); **etxean ezin** (12); **euskaraz ezin** (11); **eutsi ezin** (19); **ezagutu ezin** (18); **ezen ezin** (27); **ezer ezin** (39); **ezerk ezin** (44)

ezin adieraz (14); **ezin adierazi** (10); **ezin adierazizko** (11); **ezin ahala** (19); **ezin ahalako** (34); **ezin ahantz** (18); **ezin ahantzi** (12); **ezin ahantzizko** (26); **ezin ahantzizkoa** (10); **ezin ahaztu** (60); **ezin aipa** (10); **ezin al** (119); **ezin al du** (12); **ezin al duzu** (14); **ezin antzeman** (10); **ezin aproposagoa** (24); **ezin argiago** (29); **ezin argiagoa** (11); **ezin**

ahaztu ezinda (5); **amaitu ezinda** (4); **arnasa hartu ezinda** (6); **asetu ezinda** (3); **asetu ezinda dabil** (3); **asmatu ezinda** (19); **atera ezinda** (8); **aurkitu ezinda** (9); **aurre egin ezinda** (3); **aurrera egin ezinda** (8); **bilatu ezinda** (3); **bousses jokatu ezinda** (3); **bueltatu ezinda** (3); **buruari eutsi ezinda** (3); **burutik kendu ezinda** (9); **du jokatu ezinda** (3); **egin ezinda** (26); **egin ezinda gelditu** (3); **eman ezinda** (10); **entrenatu ezinda** (7); **erabaki ezinda** (6); **eraman ezinda** (5); **erantzun ezinda** (7); **erritmoa jarraitu ezinda** (3); **esan ezinda** (4); **eta jokatu ezinda** (3); **eutsi ezinda** (9); **ezinda aritu** (7); **ezinda dabil** (19); **ezinda dabil oraindik** (4); **ezinda dabiltza** (8); **ezinda dago** (3); **ezinda daude** (8); **ezinda egon** (15); **ezinda egon da** (4); **ezinda egongo** (3); **ezinda eman** (4); **ezinda eta** (4); **ezinda gelditu** (8); **ezinda gelditu da** (4); **ezinda geratu** (21); **ezinda geratu zen** (8); **ezinda geratu ziren** (4); **ezinda ibili** (7); **ezinda ibili ziren** (3); **ezinda ibiltzea** (3); **ezinda igaro** (3); **ezinda jardun** (6); **ezinda jardun zuen** (3); **ezinda jarraitzen** (8); **ezinda jarraitzen du** (7); **ezinda nabil** (4); **ezinda zebilela** (3); **ezinda zebilen** (4); **ezinda zegoen** (5); **ezinda zeuden** (3); **gainditu ezinda** (8); **gainetik kendu ezinda** (3); **golik sartu ezinda** (3); **harra asetu ezinda** (3); **hartu ezinda** (18); **irabazi ezinda** (15); **irabazi ezinda dabil** (3); **irabazi ezinda jarraitzen** (4); **iritsi ezinda** (3); **irten ezinda** (13); **jakin ezinda** (4); **jarraitu ezinda** (6); **jarri ezinda** (4); **jasan ezinda** (3); **jaso ezinda** (3); **jokatu ezinda** (71); **jokatu ezinda dago** (3); **jokatu ezinda daude** (7); **jokatu ezinda egon** (9); **jokatu ezinda egongo** (3); **kabitu ezinda** (5); **kendu ezinda** (16); **konpondu ezinda** (3); **lortu ezinda** (8); **mugitu ezinda** (8); **partidarik irabazi ezinda** (3); **sartu ezinda** (8); **sinetsi ezinda** (10); **sinetsi ezinda geratu** (3); **sinistu ezinda** (5); **topatu ezinda** (3); **ulertu ezinda** (3)

---

ezindu, ezin(du), ezintzen **1** da/du *ad* nor bere gorputzaz edo ahalmenez baliatu ezinik gelditu edo utzi.

Emeki emeki zangoetarik **ezindu** zen eta geroztik utzi behar izan zituen kanpo herrietako misioneak. Xipri Arbelbide

Elbarritasunak haginkada txikietan gorputz zorigaiztoko hori **ezintzen** duen heinean, eriaren inguruko pertsonak bihurtzen dira makulu, esku, beso, hanka, begi, mihi, belarri. Jon Alonso

Izterra ere ongi samar neukan; eguraldia aldatzeko bezperetan, ia-ia ibiltzea bera **ezintzeko** moduan, hanka osoa guztiz minbera jartzen zitzaidan arren. Txillardegi

Zoko batean, bertze bi gela zeuden: bata biltoki tipi bat zen, eta bertzea logela bat, aitona Nikolasek bere egin zuena erreumak **ezindu** zuenean. Joan Mari Irigoien

Ez ote nauzu **ezindu**, hala zuri aditzeko, nola zuri ihardesteko? Jon Muñoz

Hain zegoen gaitzak **ezindua**, lehen haurtzarora bihurtua baitzirudien. Askoren artean

Hala, gaitziturik inor halako jokutria gaiztoz baliatu izanaz bera eri, zahar eta **ezindurik** egoteaz, hor dio Fortinbrasi gelditzeko agindua igorri. Juan Garzia

Mindurik, **ezindurik**, gizon abade haren biografia osatzea duintasun afera nuela begitandu zitzaidan. Edorta Jimenez

-Zeharo **ezindurik** gertatu ziren. Jon Muñoz

Ez al duk ikusten **ezindua** nagoela. Bernardo Atxaga

Ezinduago eta gutiago dugu gosea senditzen. Michel Oronoz

2 (era burutua izenondo edo izen gisa)

Nola behar zaio deitu ni bezalako gizon **ezindu** bati? Hasier Etxeberria

Pentsa, udako hilabeteetan aita eta ama **ezinduak** zaharretxean sakatzen ditu, hauen gelak turistei alokatzearren. Itxaro Borda

Astegunetan ere korualderaino beterik egoten zen jende behartsuz, gizon-emakume gaixo eta **ezinduz**, neska-mutil gaixo eta ahulduz, itsuz eta gorrez, mainguz eta herrenez, legenardunez eta izurridunez. Felipe Juaristi

Lau gizonek ekartzen diote hagetan eri **ezindu** bat. Xipri Arbelbide

Gai zen nire zerebro **ezindua** hartan suertatzen ziren arazoak ulertzeko. Joxan Elosegi

Beren buruaz beste egiten dutenak Izpiritu **ezinduak** direla eta haien izaera arbuiatzen duten kanpoko kausengatik garaituak direla. Piarres Xarriton

Bere bizkar ari ziren barrez, barrez itotzen, barrez leher gaizto egiten, bere amorru **ezinduaren** bizkar. Anton Garikano

Gogo **ezinduen** artekoa bazina, aski zenuke esanda, lan hori zure esku uzteko aukera eman gabe. Joxan Elosegi

Honengatik ere Segurantza, Etsipena, Bozkarioa eta Kontzientziako ausikia Izpiritu **ezindu** baten adierazle dira. Piarres Xarriton

Mugimendu txiki **ezindu** bat egiten du, burua zorutik pare bat zentimetro jasotzeko adinakoa. Anjel Lertxundi

Baina lanaren ondoren bat-batean eskuak elbarritu zitzaizkion, edozein lanetarako **ezindua** geldituz. Askoren artean

Aitona Nikolas gero eta eriago eta **ezinduago** zegoela, gero eta hutsago eta eskasago. Joan Mari Irigoien

Neskatxa horrek beso bat **ezindua** dik, baina ni izanen nauk hemendik aitzina haren besoa eta haren eskua. Joan Mari Irigoien

Bizkar-alki bat, herbail edo **ezindu** gazte bat gainean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste batzuetan bikiak bilatzen zituzten, **ezindu** fisikoak, baita, guztion irrigarri, nanorik baldin balego gure artean. Urtzi Urrutikoetxea

Nekatuari indarrak berritzen dizkio, **ezinduari** ahalmena bihurtzen. Elizen arteko biblia

2000 bat iheslari gehiago haien ondotik heldu ziren, emakume, haur, zahar eta **ezindu**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizkaiko ezindu fisikoen (3); **edo ezinduak** (5); **edo ezinduaren** (3); **eta ezindu** (6); **eta ezindua** (5); **eta ezinduak** (5); **eta ezinduen** (6); **eta ezinduentzako** (4); **eta ezindurik** (3); **ezindu bat** (7); **ezindu eta** (4); **ezindu fisiko** (4); **ezindu fisiko edo** (3); **ezindu fisikoak** (4); **ezindu fisikoek** (3); **ezindu fisikoen** (7); **ezindu haren** (3); **ezindu psikikoen** (4); **ezindua da** (4); **ezindua eta** (3); **ezindua sentitzen** (3); **ezindua zen** (7); **ezinduak direnak** (3); **ezinduak eta** (4); **ezinduak lan** (3); **ezinduak lan munduan** (3); **ezinduen eta** (4); **ezinduen eta babesgabeen** (4); **ezinduentzat bereziki** (3); **ezinduentzat bereziki prestatutako** (3); **gogo ezindu** (3); **guztiz ezindua** (4)

---

ezindura *iz* baliaezintasuna, elbarritasuna.

Ez da hor dudarik ez-eta estakururik ikusten delarik lurralde haundi hortako miseria eta **ezindura**. Herria

Horietarik erdiak emazteentzat eta bestalde ere herriz kanpotik etorri etorkin gazteentzat eta doi bat **ezinduraz** joak direnentzat. Herria

---

ezinegon *(ETCn **5.389** agerraldi)* **1** *iz* edozein larritasunek edo egonkortasun ezak sortzen duen baretasunik gabeko egoera. ik **egonezin**.

Etsenplu bat kontatuko dizut eta haren ondoreak ere kontatuko dizkizut, ikus dezazun norainokoa zen ene **ezinegona** eta larritasuna. Joan Mari Irigoien

Baliteke halako egoera pasatu duenak urduritasuna, **ezinegona**, suminkortasuna, lo egiteko arazoak edo etengabe erne egon beharra sentitzea. Berria - Harian

Kanpoan egonaldi luzea egin ondoren, asaldura, urduritasun eta **ezinegon** guztiak mendean hartu eta hitz egiteko moduan zela iritzi zionean, denda barruan sartzera deliberatu zen azkenean. Juan Luis Zabala

Kosta egin zaio hitz egitea, antzeman dio-eta emazteari **ezinegona**. Jokin Muñoz

Bazuela aitonak barrenean itzal bat eta halako **ezinegon** bat, bertze mota batekoa, bere iraganari eta etxeko iraganari lotua zegoena, bakean uzten ez zuena eta barrendik jaten zuena. Joan Mari Irigoien

Dastatu zuen, halaber, behazuna, **ezinegona**, inolako pertsonaiatan kabitzen ez den pertsona hori. Juan Kruz Igerabide

Ukuilu aldetik ere izan zitekeen eguraldi aldaketaren zantzuren bat edo beste: Gehienetan, hango **ezinegona** aurkeztu izan da elur edo aldaketa nabarmenen seinale. Pello Zabala

Edo izen arruntago batez ezagutzen genuen beste gaixotasun hura: minbizia, bost urteko mutil hark zuena eta halako itolarria eta halako **ezinegona** piztu zizkidana. Joan Mari Irigoien

Oposizioetako data hurbilduz zihoakion neurrian, Sarari **ezinegona** sortzen hasi zitzaion. Joan Mari Irigoien

Lekuaren harmonia ezak **ezinegona** sortzen zigun. Bernardo Atxaga

Ez dakit zergatik sortzen zidan **ezinegona**. Joxe Austin Arrieta

Badaki ez duela ezer sinetsiko, baina hala ere zalantza baten **ezinegona** isiotu nahi du neskarengan, dantzan joan dakion sabeletik eztarrira, eztarritik garunera. Pako Aristi

Lepokotik heldu txakurrari, katea lotu eta sorbalda laztandu zion gero, **ezinegona** baretzeko asmoz. Joxemari Urteaga

Nazka aurpegia jarri zuen eta niri **ezinegona** gehitu zitzaidan, prakak estuegi sentitu nituen gerrian. Harkaitz Cano

Eta urduritasunak **ezinegona** ekartzen du, eta **ezinegonak** ez ohiko jokabidea. Joan Mari Irigoien

Ezagutzen ditut haatik amodioaren **ezinegonak**. Jon Muñoz

Presondegi barnean, berriz, tentsioak eta **ezinegonak** errotik mugatzen du bakartasuna. Filipe Bidart

Lagunenganako adeitasun gutxi erakusten du, **ezinegonak** hartzen du zuhurtziak edo aholkuek bere gurariekin oztopo egiten dutenean. Xabier Olarra

Emakume hark **ezinegonak** hartua zirudien. Jon Muñoz

Halakoak egiten baititu Francok gogameneko estresak edo **ezinegonak** jotzen duen aldietan. Xabier Olarra

Ezinegonak bultzatu zuen morroia eskaizko besaulki zikin batean jesartzera. Josu Landa

Gizon urduria, oinazetua, bakardadeak joa eta bizitzaren aurrean sentitzen zuen **ezinegonak** obsesionatua. Itziar Otegi

Axenario, **ezinegonak** erasanda, Lepic jauna eta anaia nagusi Felix esnatzera joan da lo-kuluxka egiten ari diren lekura. Itziar Otegi

Egia da **ezinegonak** eta jakin-minak kilikatzen zidala arima, eta amorratzen nengoela beste behin ere etxe hartatik ihes egiteko, baina erregu haren indarra izan zen, batik bat, gau hartan festa hartara joateko irrika piztu zidana. J.M. Olaizola "Txiliku"

Denboran gehiegi aurreratu naiz, baina; atzerago miatzen jarraitu behar dut, **ezinegonaren** hautsak harrotzen, **ezinegonak** eramaten baikaitu, **ezinegonak** ekartzen, **ezinegonak** bihurtzen borrokalari, **ezinegonak** bakezale ere, **ezinegonak** nozitzaile, **ezinegonak** borrero. Juan Kruz Igerabide

Barnean zeraman **ezinegonaren** harra, eta hurrengo urteetan Europan barrena ibili zen: Parisen, Alemanian... musika-ikasketetan sakontzeko aitzakiarekin, hiri guztietako parranda-giroetan gautxori. Xabier Mendiguren Elizegi

Funtzio kognitiboak sustatzearekin erien autoestimua handitzen saiatzen dira, eta maiz eritasunak eragiten duen **ezinegona** gainditzen. Berria - Harian

Hura zen **ezinegonaren** larria! Jon Muñoz

Presio hain baxuak **ezinegonaren** seinale direnez, ezin zezakeen iraun luzaro. Pello Zabala

Ezinegonaren mende zaude. Rafa Egiguren

Aurreko orduan etxera alde egitekotan egon zara, baina bertan gelditu zara batekin eta bestearekin berriketan, arratsaldekoak ematen dizun **ezinegona** arintzeko-edo. Jokin Muñoz

Zenbait nahasketa-tentaldiren **ezinegona**, fede-ezaren dardarizoa, itxaropenik gabe, goi-maitasunik gabe, arima guztiz nagi, epel, goibel eta bere Egileagandik eta Jaunagandik bakartua bezala. Patxi Altuna

Ezinegonez hurbiltzen nintzen, etxea bi aldeetatik babesten zuten lorategiak elkarrengandik noiz bananduko bizitegia oso-osorik erakusteko. Jose Morales

Batzuek zeru gero eta ilunagoari begiratzen zioten **ezinegonez**. Agustin Otsoa

Karlosek, **ezinegonez**, hostoen soinua aditu zuenean, destatu eta tiro egin zuen. Koro Navarro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Haietako bat zango artean sartu zaio tupustean, eta **ezinegon** arin bat sentitu du. Itziar Otegi

Poltsa zabor-edukiontzi batean ezarri ondotik, isil-misilka itzuli ginen etxera; nork bere pentsakizunetan murgilduta, nork bere **ezinegon** pisutsua ahalik eta arinen bizkar gainean eramanez, senik gabeko gorputz haren beso banari helduta. Josetxo Azkona

Bere izeba Agustina azkenik hara heldu zenean, **ezinegon** handiz besarkatu zuten elkar. Aitor Arana

Idatzi ahala ordea, gibelaldean **ezinegon** ttiki bat ernetzen ote zitzaion sentitu zuen. Harkaitz Cano

Nik neuk laburra dut kanporako arreta, eta berehalaxe ahitua, eta, behin bere mugetara iristen denean, **ezinegon** larri bat sentitzen dut nire gorputz eta adimen guzti-guztian. Josu Zabaleta

Indar armatuek Uriberen segurtasun demokratiko politika ezartzean izaniko porrotak beren gizonen barne **ezinegon** sakona eragiten ari dira. Berria - Mundua

Behiak arbolaren kontra igurtziz egiten duen legez uxatu nahi dut erraietako **ezinegon** zital hau. Hasier Etxeberria

Hauts zikin bat zainetan eta huts garbi bat bihotzean, jonkia dabil espediziotik espediziora, bere izpiritu eroria, ertz zailenetik abiatuz, hutsetik hutsagora altxako duen jenero santuaren bila, orratz-puntatik orratz-puntarengora, bizi-kimikarik ezean Kimika salbagarri baten mirabe bihurtua, **ezinegon** lazgarri baten izerdi hotzak heriotzaren koloreko gailur hotziletara bulkatzen duela. Iñaki Segurola

Berehala lokartuko nintzelakoan nengoen, baina halako **ezinegon** bitxi batek hartu ninduen. Alberto Ladron Arana

Poliki-poliki, **ezinegon** sorgor batek atsekabetu zuen. Karlos Zabala

Marrok elkar gurutzatzen dira, korapilatu egiten dira ezustean bestelako eremu eta koloreetako marrekin, **ezinegon** hauskor batek joak dira, norabide estrainioak dituzte, eta Zabalak beren bidaien berri ematen digu. Markos Zapiain

Hark budismoaren baitan bideratu zuen bere **ezinegon** existentziala. Juan Kruz Igerabide

Eusebio abiatu denean, betiko **ezinegonak** menderatu du. Alberto Barandiaren

Ez nintzen begiratu hari erratetik ezen, duela zenbait denbora, osasuna nahasten zidaten bortxazko **ezinegonek** hartua nintzela. Jon Muñoz

Urduritasunezko **ezinegon** bitxi batek hartu ninduen berriro. Josu Zabaleta

Ohiko **ezinegona** jabetu zen Tsiganokez, baina orain, hormek estuturik, burdin hesiek eta ezer ikusten uzten ez zuten heriozko leiho itsuek hertsaturik, bere baitara bihurtu zuen amorru guztia. Jose Morales

Gau osoak iratzarririk edukitzen ninduen nerbioetako **ezinegon** bat izan zen lehendabizi, zaratarik txikienak ikara eragiten zidan gehiegizko urduritasun bat. Josu Zabaleta

· Leibnizek berak metafora ezin ederragoa darabil filosofoen **ezinegon** bilaketara derrigortua adierazteko: [...]. Markos Zapiain

3 (hitz elkartuetan)

Higitze eta **ezinegon**-hotsa aretoan. Oskar Arana

Ikasle guztiei antzeman zekiekean unibertsitateak hasi berriei eragin ohi dien **ezinegon** edo beldur punttu hori. Jokin Muñoz

· Lurrikaren obsesio horrek (psikotiko batzuen fantasia apokaliptikoek bezala) ez ote zuen agerrarazten beraren barne-**ezinegona**, marraztean nonbait mendean hartzen saiatzen zena? Xabier Olarra

4 (izenondo gisa)

Haatik, sortzailearen ausardia irakurlearena ez bezalakoa da, urduriagoa, **ezinegonagoa**, betizuagoa, eta eragile legez komenigarri izaten zaio maiz haserrea, iraina,

gatazka. Markos Zapiain

Montoia sortzaile **ezinegonak**, ohi duenez, beste ezusteko bat eman digu *Hezur gabeko hilak* honekin. Markos Zapiain

Edonork esango dizu ezinezkoa dela begirada finkatu eta jausten den tantatxo baten bidaia amilduari jarraitzea, nahiz eta astiro jausi, lar azkarrak izaten dira, lar **ezinegonak**, lar axolagabeak, lar itsuak. Sonia Gonzalez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

artean ezinegona (3); **arteko ezinegona** (3); **bere ezinegon** (3); **bere ezinegona** (6); **du ezinegona** (4); **duen ezinegona** (3); **duten ezinegona** (3); **eta ezinegon** (6); **eta ezinegona** (28); **eta ezinegonak** (5); **euren ezinegona** (3); **ezinegon bat** (11); **ezinegon bitxi** (3); **ezinegon eta** (6); **ezinegon handia** (12); **ezinegon handia eragin** (4); **ezinegon handia sortu** (3); **ezinegon hori** (6); **ezinegon horiek** (3); **ezinegon lauso** (3); **ezinegona areagotu** (4); **ezinegona da** (6); **ezinegona da nagusi** (5); **ezinegona eragin** (15); **ezinegona eragin du** (5); **ezinegona eragin zuen** (3); **ezinegona eragiten** (4); **ezinegona ere** (4); **ezinegona eta** (21); **ezinegona ezkutatu** (4); **ezinegona handia** (5); **ezinegona handia da** (3); **ezinegona ikusita** (3); **ezinegona piztu** (5); **ezinegona sentitzen** (3); **ezinegona sortu** (21); **ezinegona sortu du** (7); **ezinegona sortu dute** (4); **ezinegona sortzen** (10); **ezinegona sortzen zion** (3); **ezinegona sumatu** (3); **ezinegonak eta** (5); **ezinegonak hartua** (4); **ezinegonak jota** (4); **ezinegonari eutsi** (3); **gure ezinegona** (3); **halako ezinegon** (9); **halako ezinegon bat** (4); **halako ezinegona** (7); **horrek ezinegona** (5); **horrek ezinegona sortu** (3); **neure ezinegonari** (3); **nire ezinegona** (8); **nolabaiteko ezinegona** (3); **sortutako ezinegona** (3); **urduritasuna eta ezinegona** (3); **zen ezinegona** (3); **zen ezinegonaren** (3); **zuen ezinegona** (3)

---

ezinezkeria *iz* ezinezkotasun gaitzesgarria.

Naturaren kontrako **ezinezkeria** horiek ainitz jende asaldarazi dute eta lehen lehenik Apezpikuen Biltzarra Espainian. Herria

---

ezinezkotasun *iz* ezinezkoa denaren nolakotasuna.

Gertaera hauek eta Iraken lanik aurkitzeko **ezinezkotasunak** herritarren haserrea gero eta gehiago hazten dute. Berria - Mundua

Ezinezkotasunak baitzemaion neskaren irriari ohiz kanpoko balioa. Joan Mari Irigoien

Baina ez du inoiz bere borroka entregatuko, bere salbuespen intimoa: kristautasunaren **ezinezkotasuna** aldarrikatuz sortzen duen barneko kristau forma berezia Joseba Zulaika

---

ezinhobe ik **ezin 1**.

---

ezinhobeto ik **ezin 1**.

---

ezinik *adlag (ETCn **1737** agerraldi; ikus beheko konbinatorian ezinik adizlagunaren agerraldi maizkoenak)*.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ados jarri ezinik (4); **ahantzi ezinik** (4); **ahaztu ezinik** (6); **ahoskatu ezinik** (5); **altxa ezinik** (4); **altxatu ezinik** (12); **amaitu ezinik** (7); **antzeman ezinik** (6); **argitu ezinik** (6); **arnasa hartu ezinik** (13); **ase ezinik** (7); **askatu ezinik** (8); **asmatu ezinik** (83); **asmatu ezinik zegoen** (4); **atera ezinik** (43); **atera ezinik geratu** (10); **atxik ezinik** (5); **atzean utzi ezinik** (5); **atzeman ezinik** (4); **aurkitu ezinik** (43); **aurre egin ezinik** (12); **aurrera egin ezinik** (18); **barreari eutsi ezinik** (8); **baztertu ezinik** (4); **begiak bildu ezinik** (4); **begiratu ezinik** (4); **bereizi ezinik** (6); **bete ezinik** (8); **bilatu ezinik** (8); **bildu ezinik** (11); **bizi ezinik** (5); **buelta eman ezinik** (9); **bukatu ezinik** (5); **burua altxatu ezinik** (7); **burutik kendu ezinik** (34); **da jokatu ezinik** (10); **egin asmatu ezinik** (9); **egin ezinik** (108); **egon ezinik** (16); **eman asmatu ezinik** (4); **eman ezinik** (26); **endelegatu ezinik** (5); **erabaki ezinik** (32); **erabili ezinik** (4); **eraman ezinik** (21); **erantzun ezinik** (8); **erreakzionatu ezinik** (9); **esan ezinik** (6); **eta mugitu ezinik** (8); **etorri ezinik** (6); **etsi ezinik** (4); **eutsi ezinik** (116); **ezagutu ezinik** (5); **ezer egin ezinik** (5); **ezinik ari** (5); **ezinik bezala** (12); **ezinik dabil** (29); **ezinik dabiltza** (12); **ezinik dago** (11); **ezinik dauden** (4); **ezinik edo** (5); **ezinik eduki** (4); **ezinik egon** (21); **ezinik egon nintzen** (4); **ezinik egon ziren** (4); **ezinik egongo** (6); **ezinik egongo da** (4); **ezinik ere** (5); **ezinik eta** (34); **ezinik ez** (4); **ezinik gabiltza** (4); **ezinik gelditu** (24); **ezinik gelditu nintzen** (4); **ezinik gelditu zen** (7); **ezinik gelditu ziren** (6); **ezinik gelditzen** (5); **ezinik geratu** (57); **ezinik geratu da** (4); **ezinik geratu nintzen** (5); **ezinik geratu zen** (28); **ezinik geratu ziren** (6); **ezinik geratuko** (4); **ezinik geratzea** (4); **ezinik geratzen** (13); **ezinik ibili** (38); **ezinik ibili nintzen** (4); **ezinik ibili zen** (10); **ezinik ibili ziren** (6); **ezinik ibiliko** (4); **ezinik ibiltzen** (5); **ezinik jarraitzen** (10); **ezinik nabil** (12); **ezinik nenbilela** (5); **ezinik nenbilen** (5); **ezinik nengoen** (12); **ezinik segitzen** (4); **ezinik utzi** (8); **ezinik zebilela** (7); **ezinik zebilen** (17); **ezinik zebiltzan** (8); **ezinik zegoela** (5); **ezinik zegoen** (24); **ezinik zeuden** (5); **ezkutatu ezinik** (26); **gainditu ezinik** (18); **gainetik kendu ezinik** (11); **garbitu ezinik** (4); **gehiago eutsi ezinik** (8); **geldi egon ezinik** (5); **gelditu ezinik** (14); **gidaria atera ezinik** (4); **gogoratu ezinik** (7); **gogotik kendu ezinik** (5); **gorde ezinik** (12); **harrapatu ezinik** (5); **hartu ezinik** (72); **hartu ezinik gelditu** (4); **hartu ezinik zebilen** (4); **heldu ezinik** (5); **hitz egin ezinik** (4); **hura jasan ezinik** (4); **igarri ezinik** (15); **ihes egin ezinik** (6); **ikusi ezinik** (14); **irentsi ezinik** (8); **iritsi ezinik** (9); **irten ezinik** (22); **jaiki ezinik** (4); **jaitsi ezinik** (8); **jakin ezinik** (11); **jarraitu ezinik** (9); **jarri ezinik** (7); **jasan ezinik** (29); **jaso ezinik** (9); **joan ezinik** (10); **jokatu ezinik** (27); **jokatu ezinik egongo** (4); **kabitu ezinik** (16); **kendu ezinik** (65); **kendu ezinik nenbilen** (4); **konprenitu ezinik** (7); **kontrolatu ezinik** (10); **libratu ezinik** (5); **lo egin ezinik** (19); **lo hartu ezinik** (17); **loak hartu ezinik** (6); **lokartu ezinik** (7); **lorik egin ezinik** (5); **lortu ezinik** (20); **malkoei eutsi ezinik** (13); **menderatu ezinik** (9); **minari eutsi ezinik** (4); **mugitu ezinik** (67); **mugitu ezinik geratu** (11); **negarrari eutsi ezinik** (9); **onera etorri ezinik** (4); **ordaindu ezinik** (4); **osatu ezinik** (5); **saihestu ezinik** (9); **sartu ezinik** (20); **sinetsi ezinik** (79); **sinetsi ezinik bezala** (6); **sinistu ezinik** (7); **topatu ezinik** (7); **ulertu ezinik** (49); **utzi ezinik** (8); **uxatu ezinik** (5); **zen asmatu ezinik** (4); **zen igarri ezinik** (5); **zena sinetsi ezinik** (5); **zuena sinetsi ezinik** (4); **zulatu ezinik** (5)

---

ezinikusi *(ETCn **148** agerraldi)* **1** *iz* gorrotoa, herra bizia. ik **ikusiezin**.

Herrialde horietan gerra, liskarra eta **ezinikusia** eguneroko ogia da. Berria - Harian

Jende gaizkilearen **ezinikusi** horiek, ez al daude ezin hobeto irudikatuta zorne urdinaren baziloak eta bakteridia karbunkosoak elkarrekin duten aurkakotasun menderaezinean. Josu Zabaleta

-Tira, bazen **ezinikusia** elkarren artean, bai. Iñaki Mendiguren

Hara norainokoa den haiek nireganako duten espa eta **ezinikusia**. Patxi Ezkiaga

Begi maltzurrak zituen, so egiterakoan munduarekiko **ezinikusia** barreiatzen zutenak. Anjel Lertxundi

Denon arteko batasuna bilatu beharra dogu nahitaez, desberdintasun eta **ezinikusi** guztien ganetik. Juan Luis Zabala

Hispanoamerikarrei diedan **ezinikusi** berbera diet haien literatur lanei. Patziku Perurena

Ezinezkoa izango zen azaltzea zein ziren gure arteko **ezinikusi** haren zergatiko zehatzak: nik ere gorroto nuen eta ez nuen inongo arrazoiren edo aitzakiaren beharrik horretarako. Ander Irizar

Ezinikusi horiek ez ziren samurrak izan. Pako Aristi

Fede zaharraren zamaz libraturik, aurre egin ahal izan zien ingurukoen **ezinikusi**, destaina eta zitalkeriei. Xabier Montoia

Ingurukoaren kontrako **ezinikusi** hori, gezurra balirudike ere, erlijioetan izan ohi da nabarmenena, ideologia politikoa deitzen zaion erlijioa barne. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hurrengo mendean, San Bernardok Abelardori zion **ezinikusian** antzeko problema antzeman dezakegu: [...]. Askoren artean

Etxeari zion **ezinikusi** honetan ez zegoen amorrurik, ez itolarririk, ez irrikarik beste nonbait egoteko. Anton Garikano

Gizon bortitz, harro, asmo txarrekotzat zeukaten, denen **ezinikusia** erakartzen zuena. Josu Zabaleta

Etxeari **ezinikusia** ziola pentsatu zuen, haserre hits horixe sentitzen dute gizonek batzuetan. Anton Garikano

-Ongi -esan zuen-, atsegin dut ezagutzen ez dudan jendea; ezagutzen ez badut, ez diodalako **ezinikusirik**. Fernando Rey

Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala ni ona naizelako **ezinikusia** didazu? Elizen arteko biblia

"Etxeari **ezinikusia** ziola pentsatu zuen, haserre hits horixe sentitzen dute gizonek batzuetan. Anton Garikano

-Ongi -esan zuen-, atsegin dut ezagutzen ez dudan jendea; ezagutzen ez badut, ez diodalako **ezinikusirik**. Fernando Rey

Hasieran halako **ezinikusi** moduko bat sentitu zuten bata bestearekiko, baina hura aspaldiko kontua zen, eta orain egiazko adiskidetasunak lotzen zituen. Karlos Zabala

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Halakoak baitziren tigre suerte hartako tigreak, eta nekez oldartzen zirela gizonaren kontra edo etxeko abere eta kabaleen kontra, nahiz eta txakurrei **ezinikusi** handia zieten.

Espero zitekeen elkarrenganako hain **ezinikusi** handiak erabat ezabatuko zituela kulturalki elkarri eragiteko aukera guztiak. Joan Mari Irigoien

Joanesek bazekien, basoa herrira bihurtzeko desioz erregearen lege-gizonekin sinatu zen hitzarmenaz geroztik, istilua eta zarraparra besterik ez zela herrian, nekazarien eta karrikakoen artean, bekaizkeria eta **ezinikusi** galanta baitzebilen bazterretan. Felipe Juaristi

Horrela amaitu zen **ezinikusi** luze hura. Agustin Otsoa

Josuren eta nire lagunen arteko **ezinikusi** zaharra. Aingeru Epaltza

Ez da erraz izaten Perurenaren zentzumen eta sentimentuetan behazuna ala eztia gailentzen den bereiztea, hau da, idazle batenganako **ezinikusi** gordina, beste idazlearenganako maitemina baino sentituagoa ote den jakitea. Patziku Perurena

Kunderaren fobia antikomunista zegoen tartean; eta fobia diot, jarrera politikotik edo **ezinikusi** hutsetik harago doan gorroto obsesiboa ageri duelako, ezaugarri patologikoak dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

Iduri luke lehengo **ezinikusitik** zerbait gelditu zaigula, anitzi bederen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gay jendeari egundoko **ezinikusia** digu. Harkaitz Cano

Fizkioari halako **ezinikusi** bat zion: "Hori dena gezurra da -esaten zuen-, jendea engainatzeko". Xabier Mendiguren Elizegi

Enperadoreak teutonieraz mintzo ziren Mendebaldeko lagunekiko elkartasuna aldarrikatzera akuilatu zuen latindar apopiloa, "erromatar" guztien aurkako **ezinikusi** komunean. Iñaki Mendiguren

Elkarrekiko **ezinikusi** honen adibide gisa aipatzen dira, batetik, Liutprando lonbardiar gotzainak Konstantinoplan izandako eginkizunaren kontaketa eta, bestetik, Ana Komnenoren Historia-n egiten den gurutzatuen deskribapena. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko ezinikusi (4); **arteko ezinikusia** (12); **arteko ezinikusiak** (8); **aspaldiko ezinikusiak** (3); **eta ezinikusi** (6); **eta ezinikusia** (9); **eta ezinikusiak** (5); **ezinikusi handiagoa** (4); **ezinikusi hori** (3); **ezinikusia ziola** (3); **ezinikusiak baztertu** (3); **ezinikusiak eta** (3); **faxistekiko ezinikusia** (3); **zion ezinikusia** (3)

---

ezinjasan *iz* ezin jasatea.

Nondik heldu dire etxetan elgarren arteko tirabirak eta **ezinjasanak**? Xipri Arbelbide

---

ezinka *adlag* ezin eginik.

Josemari ene atzean zegoen badaezpada, bere aitaren gorputz handia **ezinka** zegoen artean hantxe bertan, ondo ikusten uzten ez zigula pregoia. Joseba Sarrionandia

Estatu Batuetako armada boteretsua **ezinka** ibili zen Asiako herri hartan, eta hantxe utzi zituen bere 50.000 soldaduez gain beste milaka eta milaka vietnamdar hilik. Pello Salaburu

Bakardadearekin muturbelzturik jarri nau itsuski, **ezinka** eta muzinka, ez norterik eta ez konorterik dudala kasik. Iñaki Segurola

Ez da kontzientziaren azpitik airatzen hegaldaka; kontzientziatik, kontsignapetik, agindupetik mintzo da **ezinka**. Iñaki Segurola

Hiztun baldarra semantikaren beldurrean bizi da, semantikaren kartzela edo putzu sakon eta ilunean; handik hegatzen da **ezinka** beti, sekula ez hotsetatik eta beren josi-urratuetatik. Iñaki Segurola

Guk, ostera, su beldurgarriaren ondoan, hi haustuaren gainera ase **ezinka** negar egingo diagu eta betiko samin hau kentzeko egunik ez zaiguk iritsiko. Xabier Amuriza

Tripak orroka, loarekin bat egin **ezinka** zebilen X, behatz puntetan kilimak nabaritu zituenean. Berria - Kultura

---

ezinkeria *iz* ezintasuna, gaitzesgarritzat hartua.

Pobreziak klase ertaina kulpabilizatzen du eta aberastasun erakutsiak **ezinkeriaren** mugak trinkotzen dizkio. Baina hor zegoen, ezkaratzeko harlauzen arteketan gezaminduriko hatza eta hatzarekin batera neskaren **ezinkeria** larria. Berria - Kultura

---

ezinkizun *iz* ezinezko gauza.

Lehengo gorri hura zuritu egin da kolpera, biluziak jantzi, gustuko xokoño eta toki sakratuenak -nere barne produktu gordinenaren jomuga izanak- aldapa latz bilakatu, eta haietan obratzen ziren eginkizun eta egingurak ere **ezinkizun** beltz dira orain, Erabakiaren bortxaz. Iñaki Segurola

Itz batean esateko, euskerarentzat, idazle antzetsuaren eskuartean kultur-tresna gertatzen danean, **ezinkizunik** ez dagola argi erakutsi digu. Koldo Zuazo

Sentitu nuen azkenik zu ez maitatzea eta zu ez bertze nehor maitatzea berdin zirela niretzat **ezinkizun**. Jon Muñoz

Bi gorputzek, beren biluztasunaz harrituak bezala, beren neurriko aritmetika binario ttiki bat asmatu dute eta -paperezko teorietan **ezinkizun** dena- deduktiboki osabete, eta, hori aski ez dela, bukaera post-axiomatiko asebetegarri batez errekurtsiboki bedeinkatu, biak goxoki, unibertsitateko arratsalde urduri haietan bezalaxe. Iñaki Segurola

Bata bestea bezain **ezinkizun** dira bi oroitze horiek, hala jaiotzarena nola heriotzarena. Iñaki Segurola

---

ezinkontahala ik **kontatu 3**.

---

ezinlandia *iz adkor* ezer egin ezin daitekeen tokia.

Ezinlandia handia da kartzela. Jokin Urain

---

ezinmen (cf **ahalmen**[1]) *iz adkor* zerbait egiteko ahalmenik eza.

Eztabaidan, euskararen ahal edo **ezinmenak** baino sakonago, Estatuaren eredua dago. Joxe Azurmendi

---

ezintasun *(ETCn 754 agerraldi)* **1** *iz* zerbait egiteko gaitasunik edo ahalik eza. ik **ezinkizun**.

Ezintasuna ahalmenik eza dela eta ezjakintasuna jakinduriarik eza. Xabier Kintana

Umiltasuna da, gizaki batek bere **ezintasuna** edo bere ahulezia kontenplatzetik sorturiko Tristura. Piarres Xarriton

Bizitzaren akzidentea baldin badauka, orduan nahitaez beste akzidente mota batzuk eduki beharko ditu, hala nola jakinduria edota ezjakintasuna, borondatea edota beronen aurkakoa, ahalmena edo **ezintasuna**. Xabier Kintana

Literatura fantastikoa harreman estuan dago **ezintasunarekin** eta **ezintasun** horren hausturarekin. Bernardo Atxaga

Koadraturaren posibilitatetik haren **ezintasunera** igarotzea izan zen lehenengo konbertsioa; geometriatik aljebrara igarotzea izan zen bigarrena. Jon Muñoz

Beraren eztulaldiak, itobeharrez **ezintasunean** oratuak, gero eta beldurgarriago zitzaizkidan. Txillardegi

Proposizio apur hauekin esplikatu ditut gizakiaren **ezintasunaren** eta aldakortasunaren kausak, eta zergatik gizakiek ez dituzten betetzen Arrazoiaren aginduak. Piarres Xarriton

Gizakien arteko komunikazioaren **ezintasuna**. Josu Zabaleta

Jainkoaren izatearen froga ontologiko baten **ezintasunaz**. Ibon Uribarri

Erakuts nezake oraino nola jende arruntak Jainkoaren kontu ematen duen ahalmen hori ez dela bakarrik propio gizakiarena [...] baina **ezintasunez** josia dela. Piarres Xarriton

Abstrakziorako **ezintasuna** du L.k, eta bere jokabide osoari erasaten dio horrek. Xabier Olarra

Hortik ondorioztatzen da materialismoaren oinarrietatik abiatuta nire antolaera argitzeko **ezintasuna**, subjektu pentsatzailea naizen aldetik. Ibon Uribarri

Bost egun iraun zion alexia edo irakurtzeko **ezintasun** hark; gero, etorri bezala joan zitzaion. Xabier Olarra

2 (izenondoekin)

Ezintasun fisikoa nabaria da. Ana Urkiza

Hantusterik edo Apaltasunik handienak, Izpirituaren **ezintasunik** handiena adierazten du. Piarres Xarriton

Ahaleginak egin ditut defendatzeko, ametsetan balditzen gaituen **ezintasun** izugarri horrek loturik; garrasi egin nahi dut, -ezin dut: -mugitu nahi dut, -ezin dut; -ahal guztiak egiten ditut, arnasestuka, zapaltzen eta itotzen ari zaidan izaki hori uxatzeko, -ezin! Josu Zabaleta

3 (hitz elkartuetan)

Badela autista guztiengan arazo nagusi bat, **ezintasun**-hirukote konstante bat: elkarreragin sozialerako **ezintasuna**, hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako **ezintasuna**, jolas eta irudimenezko jardueretarako **ezintasuna**. Xabier Olarra

Oso presente daukat haurtzaroan zer nolako sentimendu bortitzak egoten diren, eta zer nolako **ezintasuna** sentitzen den. Ana Urkiza

Afektuak gobernatzeko eta hertsatzeko giza **ezintasuna** deitzen dut Morrontza. Felipe Juaristi

Oro da nahaspila eta buru-**ezintasuna**. Xabier Kintana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldi baterako ezintasuna (4); **aldi baterako ezintasunak** (3); **baterako ezintasuna** (5); **baterako ezintasunak** (3); **bere ezintasun** (3); **bere ezintasuna** (13); **bere ezintasunean** (3); **beren ezintasuna** (3); **beste ezintasun** (3); **dira ezintasunak** (3); **dituzten ezintasunak** (4); **duen ezintasuna** (8); **dute ezintasunen** (4); **dute ezintasunen bat** (4); **duten ezintasuna** (4); **duten ezintasunarekin** (3); **edo ezintasun** (5); **edo ezintasuna** (5); **egiteko ezintasuna** (8); **emateko ezintasuna** (3); **erabateko ezintasuna** (5); **eta ezintasun** (14); **eta ezintasuna** (10); **eta ezintasunak** (4); **eta ezintasunaren** (5); **eta ezintasunei** (3); **eta ezintasunen** (4); **eta ezintasunen bat** (3); **eta ezintasunez** (3); **ezintasun bat** (7); **ezintasun eta** (8); **ezintasun fisikoa** (4); **ezintasun fisikoak** (5); **ezintasun fisikoak dituzten** (3); **ezintasun fisikoren** (4); **ezintasun fisikoren bat** (4); **ezintasun guztiak** (3); **ezintasun handia** (4); **ezintasun hark** (4); **ezintasun hori** (16); **ezintasun horrek** (6); **ezintasun horren** (8); **ezintasun horri** (3); **ezintasun intelektual** (8); **ezintasun intelektual arina** (5); **ezintasun maila** (3); **ezintasun nabaria** (3); **ezintasun psikikoak** (3); **ezintasuna aitortu** (3); **ezintasuna da** (10); **ezintasuna duen** (3); **ezintasuna erakutsi** (6); **ezintasuna erakutsi du** (4); **ezintasuna eta** (12); **ezintasuna ez** (4); **ezintasuna ez da** (3); **ezintasuna ezkutatzeko** (3); **ezintasuna ikusita** (3); **ezintasuna irudikatzen** (3); **ezintasuna izan** (5); **ezintasuna nabaritu** (3); **ezintasuna onartu** (3); **ezintasuna salatu** (3); **ezintasuna sentitzen** (4); **ezintasunak dituzten** (7); **ezintasunak sortzen** (3); **ezintasunaren aurrean** (3); **ezintasunaren eta** (4); **ezintasunari buruzko** (3); **ezintasunaz eta** (3); **ezintasunaz mintzo** (3); **ezintasunaz mintzo da** (3); **ezintasunen bat** (22); **ezintasunen bat duten** (7); **ezintasunez eta** (3); **ezintasunik ez** (4); **gizakiak bere ezintasuna** (3); **haren ezintasuna** (4); **jartzeko ezintasuna** (3); **lortzeko ezintasuna** (7); **nire ezintasuna** (5); **zen ezintasun** (4); **zuen ezintasuna** (3)

---

ezintza (cf **ekintza**) *iz adkor*

-Eta, txotxo maiteok, zer uste zenuten, niri entzun gabe bazenekizkitela egundaino gure herriak egin dituen **ezintza** lorios guztiak? Koldo Izagirre

---

eziur *izond* ziurra ez dena.

Izadiaren agerpenen argipenean askok **eziurra** iraun behar du eta galdekizun batzuk konpondugabe geratu behar zaizkigu, zeren izadiaz dakiguna ez baita aski kasu guztietan argitu behar dugun guztiari dagokionez. Ibon Uribarri

Inoiz entzun al da, nolabait esateko, baldintzen beharrezko ezjakintasunagatik **eziurtzat** jo denik zein hartueman zehatz duen diametroak zirkuluarekin zenbaki arrazionaletan edo irrazionaletan? Ibon Uribarri

---

eziz ik **ezen 2**.

---

ezizate *iz* ez izatea.

Izatea **ezizatea** da, **ezizatea** izatea. Itxaro Borda

Norbait hura trabatuko baizik ez dudala iruditzen zait eta **ezizatean** urtzen naiz salbaiki, nekez eraikia erraz xitxifrikatuz. Itxaro Borda

Hiriak dakarren funtsezko eta derrigorrezko **ezizatearen** izateko elementuak premiazkoak zitzaizkidan ondorioz oroitzeko eta barkatua sentitzeko. Itxaro Borda

---

ezizen *(ETCn **341** agerraldi)* **1** *iz* norbaiti, nabarmentzen duen ezaugarriren bat dela eta, jartzen zaion izengoitia. ik **gaitzizen**.

Ezizena esaten diote batzuek beste batzuek goitizena, izengoitia edo gaitzizena esaten diotenari. Iñigo Aranbarri

Korobotxkaren nekazari gehienek **ezizenak** edo izengoitiak zituzten. Jose Morales

Nekazari batzuen izenek -eta batez ere **ezizenek**- harrituxe uzten zuten Txitxikov. Jose Morales

Izena ezkutatzeko modu honek **ezizenak** asmatzeko bidea ematen du. Iñaki Arranz

Hortik dator zure **ezizena**. Bernardo Atxaga

Jexux Lete Sarasola, idazlanetarako Ibai-Ertz **ezizena** erabili ohi zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Toto esaten dugu beti, hori baita nire osabari txikitatik geratu zitzaion **ezizena**. Bernardo Atxaga

George Sand **ezizena** hartu zuen. Berria - Kultura

Hortik bere bigarren **ezizena**. Xabier Mendiguren Elizegi

Idazleak Don Black **ezizenaren** bidez aipatzen zuen abadea. Edorta Jimenez

Elijah Jorowitz ezkutatzen bide da René **ezizenaren** atzean Primo Leviren *Baldin hau gizona bada* lanaren orrialdeetan. Iban Zaldua

-Fernando VII.a hiltzeko azpilanean aritu zen taldeari "Triangelu" **ezizena** eman zioten. Joxemari Urteaga

Gero oso futbolari ona izan zen ikaskide hura, eta futbolari ospetsu baten **ezizena** jarri zioten: Veleno. Pello Lizarralde

Ez dakigu gizon honen izenik, bakar-bakarrik bere **ezizenarekin**, "saddler of Bawtry" izengoitiarekin geratu da historian: Bawtryko uhalgilea. J.M. Olaizola "Txiliku"

La Naval buruzko txostenean "Argentina" **ezizeneko** emakume bat ageri zen, hori gogoratzen dut. Rafa Egiguren

Txanpi **ezizeneko** kakanarru alu bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Garai ederretan "la Strassacoeur" **ezizenaz** deitzen zioten ("Bihotz-hauslea"). Juan Garzia

Jean-Claude Duvalier Haitiko buru ohi eta Papa Doc **ezizenez** ezagutzen zen François Duvalier diktadorearen semea Haitira itzultzeko prest dela adierazi zuen atzo.

Berria - Mundua

Gurutz Sarasola Martinez zen, **ezizenez** Lotsati. Xabier Mendiguren Elizegi

Luis Arruza, **ezizenez** "Ferrari", mutilzaharra eta automobilzale itsua. Joan Mari Irigoien

Baina **ezizenez** aldatu diat pare bat alditan. Iban Zaldua

2 (izenondoekin)

Mauriziaren senarraren **ezizen** artistikoa "Karakol" zanez, bere burua elegantziaz txikitu eban, andrakaz galaia izaten be baekian Vulkanoren semeak. Xabier Amuriza

Zer zela eta jarri nion halako **ezizen** hanpatua lurretik bi hazbete ere altxatuko ez zen ñarro bati? Alberto Ladron Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

areitio ezizenez ermua (4); **areitio ezizenez ermuak** (3); **bere ezizena** (3); **ezizen bat** (6); **ezizen hori** (12); **ezizen horren** (3); **ezizen hura** (3); **ezizena eman** (4); **ezizena erabili** (3); **ezizena ere** (6); **ezizena hartu zuen** (3); **ezizena jarri** (9); **ezizena jarri zion** (3); **ezizena jarri zioten** (5); **ezizena zuen** (3); **ezizenez ezaguna** (4); **ezizenez ezagunagoa** (12); **ezizenez ezagutzen** (3); **ezizenez tarzan** (3); **felix areitio ezizenez** (9); **hirusta ezizenez ezagunagoa** (3); **tronpeta ezizenez ezagunagoa** (3); **tximista ezizenez** (3); **zuen ezizena** (3); **zure ezizena** (3)

---

ezjakin *(ETCn 566 agerraldi)* **1** *izond* irakaskuntzarik hartu ez duena; zerbaiti buruz ezer gutxi dakiena. ik**eskolagabe**.

Tamalez, badira gizaki **ezjakin** eta zentzugabeak, hau hitzez hitz ulertzen dutenak, eta esaten ere dutenak eurak natura jainkozkoan antzaldatuko direla. Joan Mari Lekuona

Jende **ezjakinak** ez daki beste inork gauzak beraiek baino hobeto egin ditzakeenik onartzen. Josu Zabaleta

Modu hau egokiagoa da jende **ezjakin** edo eskolagabeentzat. Patxi Altuna

Edozein rabbi arrunt eta **ezjakinek**, haiek aztertzean, ez zuen hor inolako zailtasunik aurkituko, eskolagabeak eta izatearen naturari buruzko ikasketarik ez duenak ez baitio ezinezkoari ere sinesgaitz irizten. Xabier Kintana

Gure oroimena gizon **ezjakinena** da, denboraren poderioz moteldua. Askoren artean

Kaiku alaena, ez hago hire herriñoan, hire moldeko laborari **ezjakinez** inguraturik. Xabier Montoia

Flora, **ezjakina** izanik, besteren kultura alferrikako petralkeria iruditzen zaien horietakoa zen, gajoa. Ramon Saizarbitoria

Behin eta berriro bere burua **"ezjakin** eta eskolagabe"tzat jotzen du Frantziskok. Askoren artean

Kaiku alaena, ez hago hire herriñoan, hire moldeko laborari **ezjakinez** inguraturik. Xabier Montoia

Ezjakinek ez dute arazo zailetan sartu behar. Imanol Unzurrunzaga

Ezjakin naiz kontu horretan. Xabier Olarra

Ezjakinak ginen, oso, sexu kontuan. Joxerra Garzia

Arranguraz kontatu zion zein **ezjakinak** ziren inguruko lurjabeak; zein gutxi arduratzen ziren beren mendekoez. Jose Morales

Ezjakina eta sinplea izan arren, kontenplazioaren goieneko gailurretara igo zen. Askoren artean

Norbaitek esango dit agian hemen: dakizuna erakusteko ohitura duzu, **ezjakin** horrek; eta dialektikari buruz ez al duzu deus ikasi? Imanol Unzurrunzaga

Pentsamendu galaraziaren aroan, munduak ezin bizizko putzu hiper-informatua bihurtzeko martxa daraman honetan, ezjakintasun jakintsua edo jakinduria **ezjakina** da pentsamenduaren eta adimenaren helduleku bakarra. Iñaki Segurola

Azterketak egin eta gero astakirten **ezjakintzat** nindukan maisuak. Pello Lizarralde

Lehengo batean oraindik oso **ezjakina** naizela esaten aritu ginen; horregatik, hurrengo egunetik bertatik eroaren moduan hasi nintzen ikasten. Josu Zabaleta

Uste zuen arrunt **ezjakina** nintzela ala iduritu zitzaion hartaz trufatzen nintzela? · Jainkoaren asmoaren **ezjakin**, munduko ospe hutsala irabazteko balentria handienak egingo zituela agindu zion bere buruari. Piarres Aintziart

Organo gutxiago bagenitu, gauza zoragarri eta berezi askoren **ezjakin** izango ginateke, baina organo gehiago bagenitu, frogatu ahal izateko biderik ez dugunez inoiz sumatu ere egingo ez ditugun ezin konta ahala gauza aurkituko genituzke gure inguruan. Josu Zabaleta

2 (adizlagun gisa)

Ez izan beldurrik zeuen buruak txiki eta **ezjakin** ikusten badituzue. Askoren artean

Uste genuen bere ahizparen gaixotasunaz jabetu gabe zegoela, ez zela konturatu aurreko gauean etxean izandako zalapartaz, eta **ezjakin** jarrai zezan nahi genuen, ohizko bizimodua egiten. Bernardo Atxaga

Erabakia hartzen dugun unetik hasten gara prestatzen, eta, bederatzikoa ordez, hilabete bakarrekoa balitz ere itxaronaldia, igual-igual harrapatuko gintuzke: **ezjakin** eta prestatu gabe. Arantxa Iturbe

Imanoli ez nion zuzenean galdetuko, ez nuelako bera baino **ezjakinago** agertu nahi. Aitor Arana

Urdaileko minbiziagatik hilzorian eta oinazez zegoela, morfina xiringak aringarri bakar, emeki-emeki iraungi zitzaion bizia, zuen gaitzaz **ezjakin**. Eskarne Mujika

3 (izen gisa) jakinduriarik eza.

Gure baiespenik gabe diot, hau da, egiten duguna egiazkotzat hartu gabe, egiari buruz gure **ezjakina** aitortuz, baina hala ere, egin egiten dugu. Imanol Unzurrunzaga

Testuan arkituko dituzun iluntasunak, beraz, ez dira guztiak itzultzailearen ezinak edo **ezjakinak** eragindakoak. Juan Martin Elexpuru

Ez dakizu ezer ala deus ez jakitea bera ere zure **ezjakinaren** atal bat da? Imanol Unzurrunzaga

Gidaria-n maiz ageri dira era honetako aldarriak, egileak hainbeste **ezjakinen** harrokeriaz eta hantuste irrigarriez sentitzen zuen gaitzespenaren isla gisa. Xabier Kintana

Hitzek inon ikasi gabeko jakite bat dakarte berekin, **ezjakinak** edo jakinezak gozatutako jakite bat, eta hargatik dira pentsamenduaren ama eta ume, arrazoiaren inude eta titi-ume. Iñaki Segurola

'Anakroniko hitzaren antzera esaten da anatopikoa,' esan dit, aurpegian **ezjakina** igarri didanean. Joseba Sarrionandia

Cumbanchear? -jarraitu zuen Taniak nire **ezjakin** aurpegia ikusirik-. Jon Muñoz

4 pertsona ezjakina.

Ezjakina harroa da. Alberto Ladron Arana

Ezjakin galantak dira, dena nahasten dutelako. Berria - Euskal Herria

Ni **ezjakin** gizajo bat besterik ez naiz. Koro Navarro

Ezjakinak ezagutu du, beraz, jakituria. Imanol Unzurrunzaga

Hau da Jainkoaren borondatea: zuek, on eginez, zentzugabe eta **ezjakinak** isilaraztea. Elizen arteko biblia

Ikusten dudanez **ezjakinak** eragin handiagoa izaten duela jakintsuak baino. Santiago Iruretagoiena

Errazagoa baita asko dakienari ezer ateratzea, ni bezalako **ezjakin** bati baino. Anjel Lertxundi

Gertagaitza noizbait gertatzen denean, ez dago horretan inolako goragotasunik edo antzekorik, ez miraririk, ez beste ezein ixtoriorik, **ezjakinek** horrelakoak hain atsegin dituzten arren. Joxe Austin Arrieta

Psikiatrak dena daki, hau da, Dena Dakienaren Gaitzak harrapatua dago, eta gaitz horren sintometako bat da oraintsu **ezjakin** jakintsu baten ahotik ikasi dudan honako hauxe: "dena dakienak gezurrak ere jakiten ditu". Iñaki Segurola

Zu **ezjakin** hutsa zara. Pello Lizarralde

Esaten zuten ni eta nire arrazako eskaleak **ezjakin** hutsak ginela eta ez ginela inoiz eskolan egonak. Pello Lizarralde

Ezjakinen artean bizi den gizon librea, haien faboreak saihestera lehiatzen da ahal bezainbat. Piarres Xarriton

5 ***ezjakinean*** jakin gabe.

Erregina, jakinean ala **ezjakinean**, argi ematen ari zitzaion Garrüzeko kapitainordeak bizi zuen ilunari. Aingeru Epaltza

Lapurretaren etekina jasotzen duenak **ezjakinean** jaso dezake mila kasutan; lapurra, ordea, beti da errudun. Iñaki Iñurrieta

Badakit, senideok, **ezjakinean** jokatu zenutela zuek, bai eta zuen agintariek ere. Elizen arteko biblia

Jainkoak ezaguna du hauen santutasuna, nahiz eta anaiak eta gizon-emakumeak zenbaitetan **ezjakinean** egon. Imanol Unzurrunzaga

Esaneko seme-alabei dagokienez, ez jarraitu **ezjakinean** bizi zineten garaiko grina txarrei. Elizen arteko biblia

Zein da bada ustez **ezjakinean** egin dudan eta hainbertzeraino haserretu zaituen makurkeria hori? Jon Muñoz

Ezin **ezjakinean** errenditu.· Hola ez ginuen auzibiderik elgarren artean eta hori ere zerbait zen baina enetzat nekea hastean, ene **ezjakinean**. Herria

Kontalariak "garai hartan dena zen posible"ka ekitea, kasu, ez da pose hutsa, ez da posea bakarrik; bada hor beraren gainetik -beraren **ezjakinean** - dabilen jakituria puntu bat. Iñaki Iñurrieta

Ene **ezjakinean**, zure antzeak du, izarrak gau ilunenean bezala, bizi ere biziki ñirñir egingo. Juan Garzia

Jainkoaren gizona urruti zegoela eta haren **ezjakinean**, etxe bat eraiki zuen korrika eta presaka kapitulurako. Askoren artean

Senarraren **ezjakinean** beste gizon batekin sexu-harremanak izan ditu eta kutsaturik gelditu da. Elizen arteko biblia

Hara, ikus tripazain hau, zuen **ezjakinean** oilasko-haragiz bapo jarri dena. Askoren artean

Hartan, Jainkoaren probidentziaz, guztien **ezjakinean** norbait azaldu zen, beharrezko janariak ekarriz. Askoren artean

Ziurtzat hartu izan dute, beraz, Jainkoen judizioek gainditzen dutela urrundik gizakien ulermena; eta kausa hori bera askiko zen egiaren **ezjakinean** uzteko gizaki guztiak, sekulako, Matematikak ez balie haiei erakutsi beste egiabide bat, ez xedeez baina bai esentziez eta itxuren propietateez arduratzen dena. Piarres Xarriton

6 *ezjakinarena egin*

Nik, alarma piztua, **ezjakinarena egin**, eta ezetz erantzun diot. Patxi Zubizarreta

Bazekizkiat buruz salmoetako zenbait bertso; jakintsuarena egingo diat, beraz, hark **ezjakinarena egin** duenez. Askoren artean

Arimak ezagutzen duen ezagutzaren aurrean ezin baitu **ezjakinarena egin**. Imanol Unzurrunzaga

Bazekien bere aitak zer nahi zuen, baina **ezjakinarena egiten** saiatu zen. Arrotza baldin bada, ezikusi edo **ezjakinarena egingo** dugu, baliteke. Pedro Alberdi

Disimulatzen ahalegindu nintzen, **ezjakinarena eginez**. -Ez **egin ezjakinarena**. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ala ezjakin (3); **bere ezjakinean** (6); **bezain ezjakin** (5); **bezain ezjakin eta** (3); **bezalako ezjakin** (3); **eta ezjakin** (13); **eta ezjakina** (13); **eta ezjakinak** (9); **eta ezjakinean** (3); **eta ezjakinek** (3); **ezjakin bat** (10); **ezjakin batek** (4); **ezjakin batzuek** (3); **ezjakin batzuk** (3); **ezjakin edo** (3); **ezjakin eta** (24); **ezjakin eta eskolagabe** (3); **ezjakin hark** (3); **ezjakin horiek** (4); **ezjakin hutsa** (13); **ezjakin hutsa da** (3); **ezjakin hutsa zara** (3); **ezjakin hutsak** (6); **ezjakina da** (5); **ezjakina ere** (4); **ezjakina eta** (4); **ezjakina izan** (4); **ezjakina izatea** (3); **ezjakina naizela** (3); **ezjakina nintzen** (3); **ezjakina zela** (4); **ezjakinak dira** (5); **ezjakinak eta** (6); **ezjakinak ziren** (3); **ezjakinaren plantak** (3); **ezjakinarena egin** (4); **ezjakinarena eginez** (3); **ezjakinean bizi** (3); **ezjakinean egin** (3); **ezjakinean egon** (5); **ezjakinek eta** (3); **ezjakinen eta** (4); **gure ezjakin** (3); **guztiz ezjakina** (4); **hain ezjakina** (3); **nekazari ezjakin** (5); **ni bezalako ezjakin** (3); **zuen ezjakin** (3)

---

ezjakintasun *(ETCn **395** agerraldi orobat **ez jakintasun** g.er. eta **ez-jakintasun** g.er.)* **1** *iz* ez jakitea; ezjakinaren egoera; jakintasun eza.

Ezintasuna ahalmenik eza dela eta **ezjakintasuna** jakinduriarik eza. Xabier Kintana

Flannery O'Connorren ipuin batean irakurri berri dut **ezjakintasuna** jakinduria bihur daitekeela, baina alderantzizkoa, jakinduria **ezjakintasun** bihurtzea, ezinezkoa dela. Berria - Kultura

Ezjakintasuna da amodio handien babes santua. Fernando Rey

Halabehar deritzoguna kausalitatearen makineria konplexuaz dugun **ezjakintasuna** da. Bernardo Atxaga

Ezjakinei bakarrik, beraz, zaie erakusten **ezjakintasunetik** jakintzara igaro daitezen. Joan Mari Lekuona

Ezjakintasunean oinarrituriko Jainkoa da hori, gozamenaz ezer jakin nahi ez duena. Joseba Zulaika

Jakinduria edota **ezjakintasuna**, borondatea edota beronen aurkakoa, ahalmena edo ezintasuna, oharmena edo beronen aurkakoetariko bat. Xabier Kintana

Paradoxa, disidentzia, sekretismo eta **ezjakintasun** guztien gainetik, erantzukizuna exijitzen dio. Joseba Zulaika

Ez da ezaguera, ordea, arriskutsua, **ezjakintasuna** baizik. Juan Garzia

Zure esperantza **ezjakintasuna** besterik ez baita. Agustin Otsoa

Ezjakintasuna edo berekoikeria, zer ote da hori? Edurne Elizondo

Ezjakintasunak eta tiraniak bakarrik nahas ditzakete hitz eta ideiarik argienak. Juan Martin Elexpuru

Ezjakintasunak eusten zigun bizirik; alegia, mendian gora abiaturik, gastatua eta hausteko zorian delarik soka, zu, ez baitakizu deus, ziur-uste osoan zoazenean bezala. Juan Garzia

Xehetasun honi buruz aitortu dugun jokaera zalantzatiak -ezen ez **ezjakintasunak**, eta are gutxiago zabarkeriak- ez dituela gradu erdi batean ere aldatzen gertaeraren koordenadak. Karlos Linazasoro

Gauza jakina baita **ezjakintasunak** eta zigorren iluntasunak hauspotu egiten dituztela grinak. Juan Martin Elexpuru

Nola eragiten dio Suediako gizarteak samien inguruan duen **ezjakintasunak** zuen aldarrikapenetan? Berria - Mundua

Zabala, **ezjakintasunak** eta itsukeriak eraginda, ez zen konturatu Lekeitiokoak eta Orozkokoak ez zirela herri horietan "gordetako" adizki zaharrak, hantxe sortutako berri-berriak baizik. Koldo Zuazo

Ezjakintasunak sortutako larritasuna antzematen zen herritarren hitz gehienetan. Berria - Harian

Ezjakintasunak berez dakarren zorionean pentsatzen hasi zen. Jose Morales

Konoaren neurria edo eguzkiaren esferikotasunaren berri ez dakienaren **ezjakintasuna**, ez litzateke Jainkoa ba ote den ala unibertsoan jainkorik ez ote den ez dakienarena bezain larria. Xabier Kintana

Ezjakintasuna ezkutatzeko erabili ohi zuen autosufizientzia. Ramon Saizarbitoria

"Ez nago ohituta hiriaren alde honetan", zuritu zuen gidariak bere **ezjakintasuna**. Harkaitz Cano

Mathildek sorbaldari gora eragin zion, **ezjakintasuna** adierazteko. Anjel Lertxundi

Hor jende informatuak ez du bere ezina eta **ezjakintasuna** apalkiro aitortu beste erremediorik. Iñaki Segurola

Kasu honetan ez dit ardura Ipuin Orokorraren zaleek, beren **ezjakintasunean**, ahozkotasuna kaleko hizketa arruntarekin parekatzeak, haren adierazpen erritmiko eta formalizatuak aintzat hartu gabe [...]; gogoeta horren azpiko mezuak arduratzen nau. Bernardo Atxaga

Behin baino gehiagotan aurkituko du bere ondorengoen zorionaren alde sakrifikatutako belaunaldi oso bat, **ezjakintasunaren** ilunpetik filosofiaren argira egin beharreko igarobide tamalgarri baina beharrezkoan ibilitakoa. Juan Martin Elexpuru

Ezjakintasunaren putzu beltza. Xabier Olarra

Gure **ezjakintasunaren** ispilu gara askotan. Pello Salaburu

Neure **ezjakintasunaren** guztiz jakitun nago. Berria - Euskal Herria

Ezjakinak ez du bere **ezjakintasunaren** adigairik, jakintzarena ez baitauka. Ibon Uribarri

Hala, egia bada ezen jakintasuna **ezjakintasunaren** korapiloak laxatzea dela, egia da, halaber, ezen, korapilo bat laxatzerako, bertze zazpi asmatu behar izaiten ditugula. Joan Mari Irigoien

Nahita edo **ezjakintasunaren** ausardiak eraginda. Berria - Mundua

Beren irakaspenaren bermatzeko asmatu dutela argumentatze medio berri bat, argumentua bilduz ez ezinezkora baina, bai, **ezjakintasunera**. Piarres Xarriton

Ezjakintasunaz mintzatu ginen batik bat; pertsonen artean gertatzen den elkar ezagutu ezinaz eta, zehatzago, periferian dauden lekuei buruzko **ezjakintasunaz**. Bernardo Atxaga

Ausardia ez dator, oraingo honetan, **ezjakintasunetik**. Koldo Zuazo

Pentsatu nuen okertu egin nintzela nire gazte urte haietan, eta okertze hori **ezjakintasunetik** etorri zela, bizitzaren lehen egia, xinpleena -"bizitza da handiena"- ondo ez konprenitzeagatik. Bernardo Atxaga

Jendeak barra-barra aipatzen zuen Biltzarra, zeinek ageri-ageriko burlaizez, zeinek ahotsa apalduz, zeinek larridura nahiz jakinminez; denek ere, ustez, **ezjakintasunez**. Juan Garzia

Neska guztiek elkarri egiten zioten so, **ezjakintasunezko** imintzioak eginez, inork ez baleki bezala zertaz ari zen. Joan Mari Irigoien

Ezin barkatuzko **ezjakintasuna** hauxe, beren buruak aztertu behar baitzituzten eta beren asmoak ere bai, Jainkoa izan zedin helburua eta ez beren interesa. Joan Mari Lekuona

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Pentsamendu galaraziaren aroan, munduak ezin bizizko putzu hiper-informatua bihurtzeko martxa daraman honetan, **ezjakintasun** jakintsua edo jakinduria ezjakina da pentsamenduaren eta adimenaren helduleku bakarra. Iñaki Segurola

Miresten nuen nola gero, bere **ezjakintasun** adeitsu harekin, nire istorio irrigarri haiek lehen mailako literaturatzat hartzen zituen. Oskar Arana

Ezjakintasun politiko oso-osoan bizi ginen gu, ez etxean ez eskolan ez baikenuen ezer entzun ez ikurrinari, ez Euskadiri buruz. Xabier Mendiguren Elizegi

Horregatik, bada aski oinarririk, Le Soleilen **ezjakintasun** dogmatikoa gorabehera, aurkitu ziren lekuan jarri zituztela pentsatzeko, eta nahiko berandu jarri zituztela gainera. Koro Navarro

Hamar mende geroago, taberna ziztrin batean, Irlandako liburu magikoa osatzeko gauza zen Hilario bere **ezjakintasun** zorrotzarekin. Pako Aristi

Nondik halako interes bat-batekoa biologiarenganako, ordura arte zientziaren aurrean halako **ezjakintasun** harroa eta are mespretxua erakusten zutenen aldetik, hain baitzeuden ziur kultura izadiari nagusitzen zaiola nonahi eta beti? Juan Garzia

-Technology... -esan zuen orduan, eta ez, emakumeei entzuten ohitua nagoen bezala, **ezjakintasun** soilarengatik, burla modura baizik. Joxe Austin Arrieta

Ezjakintasun itzelaren agerpidea dela pentsatzea ezen Lisboako mairuak, hain saiatuak izaki, zakur-saldoaren ondo-ondoan biziko zirela. Jon Alonso

Bizi garen **ezjakintasun** sakonean, zein ote da jainkoari atsegin ematen dion erlijioa, jainkorik izatekotan? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ezjakintasun itsua sasijakinduria bezain kaltegarria ez bada ere (honek, lehenaren gaitzez gain, ikuspegi labur eta egiatik urrunaren hutsegite saihestezinak baititu) gizon argitua da soberanoak nazioari eta bere buruari egin diezaiokeen oparirik zoragarriena. Juan Martin Elexpuru

Ez zuen balio izan **ezjakintasun** krudelak eta sentiberatasun ezak sakrifikaturiko ahularen intziriak. Juan Martin Elexpuru

Ezjakintasun lotsatiak asmaturiko delitu ezinezkoak leporatuta. Juan Martin Elexpuru

Gauza guztien **ezjakintasun** erabatekoan daude halako lekuan. Iñaki Iñurrieta

Hitzok nabarmen ematen dute aditzera hala mintzo direnen gustu ezinago txarra eta haien **ezjakintasun** etsi-etsia. Juan Garzia

Ez dut onartzen jatorrizko **ezjakintasuna** galarazten duen ezer. Antton Olano

Berbaitango gauzei buruzko gure ezinbesteko **ezjakintasuna**. Ibon Uribarri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Salbatorera hobeto esanda - **ezjakintasun** -keinua egin zuten bere bekainek, eta neronek segitu nuen orduan-: Aita Morlans. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezjakintasun sare horretan oinarritzen da boterearen misterioa: Lege bihurtu den Aita hilarenganako, Gizon Handiarenganako, "Beste" nagusiarenganako nahitaezko traizioan. Joseba Zulaika

Honelakoak izaten dira **ezjakintasun** garaietan irauten duten gauza bakarrak, eta hauek bereganatzen ditu beti gizadi otzanak, eta modurik zelebre eta zentzugabeenetan erabiltzen. Juan Martin Elexpuru

Ezjakintasun aroko mendeak eurak ere, moral publikoa moral pribatuari men egitera behartutako garaiak, jakinduria eta esperientzia-iturri dira mende argituentzat. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere ezjakintasun (4); **bere ezjakintasuna** (6); **beren ezjakintasuna** (3); **buruzko ezjakintasun** (3); **dagoen ezjakintasuna** (3); **den ezjakintasunaren** (3); **edo ezjakintasun** (3); **edo ezjakintasunaren** (3); **eta ezjakintasun** (11); **eta ezjakintasuna** (7); **eta ezjakintasunak** (5); **eta ezjakintasunaren** (4); **ezjakintasun eta** (4); **ezjakintasun handia** (7); **ezjakintasun handia dagoela** (3); **ezjakintasun hori** (10); **ezjakintasun keinua** (3); **ezjakintasuna agerian** (5); **ezjakintasuna da** (6); **ezjakintasuna dela** (4); **ezjakintasuna edo** (3); **ezjakintasuna ere** (3); **ezjakintasuna eta** (7); **ezjakintasuna handia** (3); **ezjakintasunagatik edo** (3); **ezjakintasunak eta** (6); **ezjakintasunaren eta** (4); **ezjakintasunari aurre** (4); **ezjakintasunari aurre egiteko** (3); **gure ezjakintasuna** (3); **inguruan ezjakintasun** (3); **nire ezjakintasuna** (7)

---

ezjakintsu *izond* jakintsu ez dena.

"Ez politiko, ez enpresario eta ezta eskalerik ere", aditu diot oraintsu nere maisu **ezjakintsuetan** argienari. Iñaki Segurola

Hargatik dira zahar jakintsu kontseilu-emaileak horren antojagarriak, eta maitagarria, aldiz, ez dakitela gozo-gozo aitortzen dakiten atso-agureen zuhurtzia **ezjakintsua**. Iñaki Segurola

Adimenez **ezjakintsu** edo nahimenez makal den maitagogoak askotan du benetan maiteago bere burua eta beste maitagogoa, gizaki jakintsuenak baino. Jenaro Garate

---

ezjakintza *iz* jakintzarik eza.

Halako eragina dauka ohiturak, non sendoena den lekuan, geure geurezko **ezjakintza** estali ezezik, bere burua ere gorde egiten duen; eta badirudi gainera egon ere ez dagoela, hain zuzen erraietaraino sartua dagoelakotz. Patziku Perurena

Ihardespenen anbiguotasunaren arabera buru-belarri, sutsu, ezjakin, **ezjakintzak** dakarren harrotasunez, gure gurasoak berak hiltzeko prest gara. Itxaro Borda

Hartan sinestea superstizioa da, **ezjakintzan** oinarritzen baita, zeinaren ondorioek gizakien bizitzara larritasuna dakarten. Xabier Amuriza

Aztertu nor den Jainkoa, bere kontra egin baitut bekatu, eta haren tasunak ene kontrakoekin erkatu: haren jakinduria ene **ezjakintzarekin**, haren ahalguztiduna ene ezerezinarekin, haren zuzentasuna ene okerkeriarekin, haren ontasuna ene txarkeriarekin. Patxi Altuna

Nire **ezjakintzaren** kontzientzia (hau aldi berean beharrezkotzat ezagutzen ez denean) nire azterketak bukatzearen kausa baino gehiago hauek iratzartzearen benetako kausa da. Ibon Uribarri

Alferrikako egitasmoa da, ordea, guztiz zalantza hauetan geratzea eta bere **ezjakintzaren** uste osoa eta aitorpena egitera aholkatu nahi izatea. Ibon Uribarri

---

ezjakite *iz* jakiterik eza.

Ugazabandrearen hitzetan kexu kutsua antzeman duk, hire **ezjakitea** iraingarri balitzaio bezala. Pedro Alberdi

Faltsutasuna ez da gabezia absolutua (Izpirituentzat ezen erraten baldin badugu tronpatzen direla edo oker dabiltzala, ez dugu horrelakorik egiten Gorputzentzat); ez da ere **ezjakite** absolutua, ezen, gauza ezberdinak dira **ezjakitea** eta oker ibiltzea. Piarres Xarriton

Ezjakitearen agonia jasan ezinezkoa gertatu zitzaidan azkenean, eta arduraz mugitu nintzen aurreraka, luze-luze besoak eta begiak beren zuloetatik atera beharrean, argi-izpi meheren bat atzemateko itxaropenaz. Koro Navarro

Bi munduak eta gauzen unibertsalitatearen jatorria bereiztea, honen egiazko ezagutza **ezjakite** jakintsuan dagoelarik. Imanol Unzurrunzaga

---

ezjakitun *izond* jakitun ez dena.

Horazio laguna, galdua nauk; hik bizirik dirauk: emaiek enekin ene kausaren berri **ezjakitun** direnei. Juan Garzia

Ikerkuntzaren eta zientziaren mende honek ekarri digun aurkikuntza nagusia, ziur asko, zera da: **ezjakitun** garela, sakonki **ezjakitun**, izadiaren zer-nolakoaz. Juan

Garzia

Luzaro pentsatu dut nik esandakoaren **ezjakitun** zinela, ez bainekien nik zuk zer esan zenuen. Imanol Unzurrunzaga

Zeren, a ze barre-algarak egin izan ditugun anaiak eta biok, hainbat jende bihotzoneko bezain egiaren **ezjakitun** gu bion arteko antz izugarriaz ohartzen zirenean. Joxe Austin Arrieta

Arrazoi osoz esan ohi da, beraz, ezein diziplinatan **ezjakitun** direnen arimak eta eskolatu gabekoak baraurik eta gose antzean daudela. Imanol Unzurrunzaga

Beharrik, dela durduzaturik zelako, dela **ezjakitun** zegoelako, edo atxikiagoa zelako erantzunari gutunari berari baino, eta bide horretarik ezin eskura baitzezakeen, ez zidan deusik aipatu. Jon Muñoz

Ez zion, beharbada, aurre egin nahi **ezjakitunen** sinesgogortasunari. Juan Garzia

---

ezjaramon ik **jaramon 4**.

---

ezjendetu, ezjende(tu), ezjendetzen da *ad* jendegabetu.

Halaz donadoen bakartasunean **ezjendetzen** ari ziren. Itxaro Borda

---

ezkabia *(orobat **ezkabi**) iz* larruazaleko eritasun kutsakorra, bizkarroi batek sortua, ezkata modukoak eta ilea erortzea eragiten dituena.

Hola dira herri hortan ikusten ere meningita, tifoida, tuberkulosa, **ezkabia** eta zer ez oraino? Herria

Hara ekartzen dituzten txakurrek pairatzen dituzten gaitzak: hotzeria, hanka hautsiak, gaiztotutako haginkadak, **ezkabia**. Oskar Arana

Baina begiratu: **ezkabia** dut! Xabier Olarra

Egiptoarrak jo zituen bezalako zauri zornatsuz eta erlakizten, sarna eta **ezkabiaz** joko zaituzte Jaunak, eta sendaezinak gertatuko zaizkizue gaitzok. Elizen arteko biblia

Apaizak **ezkabiak** jotako aldea miatzean, azalekoa baino sakonagoa ez dela eta ilea ez dela belztu ikusten badu, aparte edukiko du gaixoa zazpi egunez. Elizen arteko biblia

Ezkabia azalean zabaldua duela egiaztatu ondoren, ez du ile horirik ba ote duen aztertu beharrik; gaixoa kutsatuta dago. Elizen arteko biblia

Apaizaren ustetan **ezkabiak** bere hartan jarraitzen badu eta haren tokian ile beltza hazi bada, **ezkabia** sendaturik dago. Elizen arteko biblia

Ikusten badu azalekoa baino sakonagoa dela eta ilea horitua eta bakandua duela, kutsatutzat aitortuko du; **ezkabi**-kasua da, buruko edo bizarreko legena. Elizen arteko biblia

---

ezkabiadun *iz* ezkabiak jo duen pertsona.

Ez munduko ipurtzulo honetan gelditu, nekazari eta **ezkabiadun** haien artean. Jon Alonso

---

ezkai **1** *iz* ezpaindunen familiako landarea, lurralde epeletan hazten dena, oso usain onekoa*(Thymus vulgaris).* ik **erlebelar**.

Ortu jostailuzko bat ere bai, sukalde belarrentzat antolatua: albaka, **ezkaia**, erromeroa. Hasier Etxeberria

Nire baratzea ikusiko duzu, **ezkaia** landatu dut bazter guztietan. Karlos Zabala

Atea ireki, begiak itxi, hamaika usain-belarrek perfumatutako airea biriketaratu -**ezkaiak** eta erromeroak, salbiak eta errudak, izpilikuak eta berbenak-, besoak zabaldu... eta mundua bere besoetan zeukàn haur txiki bat zela iruditzen zitzaion. Joan Mari Irigoien

Anis-belarraren eta **ezkaiaren** usaina besterik ez zitzaien falta, eta kilkerren zarata, Maures-en edo Estérel-en zeudelako irudipena izateko. Jon Muñoz

Txarpot ihiena: **ezkai** ihiena (landare usaintsua). Patxi Ezkiaga

2 (hitz elkartuetan)

Ezkai landareek bi ertz gris margotzen zituzten bidexkaren bi aldeetan. Karlos Zabala

Leizeen gainean botanika bitxi eta abantzu ezezagun bat hazi da, Baionako astragaloa, krabelin frantsesa, itsasoko lihoa, pinpinela hostoko arrosa, **ezkai** hostoko huntza. Koldo Izagirre

Han Laujarren, non **ezkai**-esentzia destilatzen baitzuten. Joan Mari Irigoien

Oraindik ez du hasi argitzen, haize freskoa sentitzen dute, **ezkai** usaina baitakar leiho erdi irekietatik, egunsentia iragarriz. Xabier Olarra

Burua apaldu eta elikagai erraldoien lokamuts hartara sartu zen, osasun betean eta **ezkai** usainean emandako egun gozo tristea gogoan zeramala. Karlos Zabala

Eurian sartu ziren, euren puskak bizkarrean; elizatik pasatu Amabirjinari errezatzeko, eta **ezkai** eskukada bat utzi zuten limosnatzat. Juan Garzia

Apangotik indioak jaitsi dira euren kamamila-errosario, euren erromero, euren **ezkai** sortekin. Juan Garzia

Barrukien pabiloiaren kanpoko postuetan luze, **ezkai**, izpiliku, baratxuri eta tipulatx landak hedatzen zirela zirudien. Karlos Zabala

---

ezkail ik **ezkel**.

---

ezkailu *iz* Zarboaren familiako arraintxoa, erreka, ibai eta urmaeletan bizi dena *(Rutilus arcassi* eta *Phoxinus phoxinus).*

Txikienak **ezkailuak** ditun, pinttoak amuarrainak, eta sugeantzeko horiek aingirak. Pako Aristi

Hagitz janari preziatu omen ziren **ezkailuak**. Patziku Perurena

Denbora batean, "Jupiterren muinak" deitzeraino, hagitz janari preziatu omen ziren **ezkailuak**. Patziku Perurena

Ume-umetatik etorri zitzaidan mota guztietako zomorroak eta errekako **ezkailuak** harrapatzeko joera. Joan Mari Irigoien

Argizko **ezkailuek** igeri jarraitzen dute; ezin dira jaitsi beraganaino. Anton Garikano

Hotz-etxolan geratzea erabakitzen du, ilunpeak irents dezan, goiko argi-**ezkailuen** antzera. Anton Garikano

Datorren urtetik aurrera besterik ez da geratuko Baztan ibaian: berak jango ditu beste guztiak, bertako izokin, loina, amuarrain eta **ezkailuak**. Hasier Etxeberria

Amuarrainak begi bi, sei **ezkailuk** hamabi. Joxemari Urteaga

---

ezkaini ik **eskaini**.

---

ezkapi *ipar* eskapatu.

Ahotik **ezkapirik** eüskararen hatsa. Herria

Ederretarik **ezkapi** zen hor Villon, hanitxez gütiago aski beitzen ordüan norbaitek ürkatzeko. Herria

Mauleko gaztelütik **ezkapi** zela Bernat Goihenetxeko "Matalaz", eta bortü xoko batetan gorderik bizi dela. Herria

---

ezkaratz *(orobat **eskaratze**)* **1** *iz* etxe, baserri eta kidekoetan, sarreran dagoen gela zabala.

Egia da gurea fabrika bat dela eta ez duela ohiko **ezkaratz** batek bezala zenbakia jarrita. Harkaitz Cano

Zuhurra izan naun, eta **ezkaratz** batean atera dinat dirua patrikatik, bizartegira sartu baino lehen. Anton Garikano

Ustezko erasoa Gasteizko Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko **ezkaratz** batean gertatu zen, eta lekukoek eman zioten abisua Ertzaintzari. Berria - Euskal Herria

Ezkaratze batetik, kapusaia zeukan emakume bat keinuka ari zitzaion. Lopez de Arana

Portu-hiri guztietan bezala, Triesten ez zen ostaturik eta apopilo-etxerik falta, leiho eta **ezkaratz** askotan ikusten ziren eskuz idatzitako iragarki txikiak, batzuk alemanez eta ingelesez, oheak eskaintzen. Anjel Lertxundi

Bazen, bada, landetxe handi hartako beheko solairuan **ezkaratz** bat sekulako zabala iruditzen zitzaidana. Josu Zabaleta

Aurretik beste emakume batekin saiatu zen: etxeko **ezkaratzean** bere atzetik sartu zen; besotik heldu, aurpegian jo eta galtzak jaisten saiatu zen. Berria - Euskal Herria

Gure herriko ohitura malapartatua da, inor hiltzen denean, zenduaren argazkia eta datuak hil-ohar batean bildu eta jartzekoa herriko **ezkaratze** guztietan. Karlos Linazasoro

Hotelaren **ezkaratzean** zuhurtasunez behatzen zizuten gizonezkoak eta emakumezkoak. Oskar Arana

Hotel Suisse-ren hallean (barka: **ezkaratzean**), belus, erditzal eta errezelazko oasi anakroniko hartan, zain neukan Martini doktore zelakoa. Juan Garzia

Ritz-eko **ezkaratzean** eskegita egoten zen argi-armiarma itzela. Oskar Arana

Etxe-orratzaren **ezkaratzean**, asiar, europar ala ipar-amerikar jaunttoak agertzen ziren: maleta beltza, soineko dotorea, 'pastel' kolorezko ttattarra, betaurrekoen gibelean begirada seriosak, arranguratuak asmatzen ziren. Ramuntxo Etxeberri

Ezkaratzean, igogailua etorrarazteko botoia zanpatu nuen. Aingeru Epaltza

Kalera irten orduko, **ezkaratzean**, batera eta bestera begiratu zuen, kanpora buru erdia bakarrik ateraz. Unai Iturriaga

Gela bateko atea zabaldu zen, eta bi osaba, sekulako beldur-ikara eragiten zidatenak, ate haren atzean zaratak eta argiak itxirik, **ezkaratzean** hara-hona ibiltzen hasi ziren. Josu Zabaleta

Botak **ezkaratzean** kenduta igo zen bigarreneraino, zura ez zikintzeagatik. Koldo Izagirre

Irisarrik, salan izekirik zeuden argimutiletako bat harturik **ezkaratzera** jaitsirik, atea ireki eta lau bisitarirekin topo egin zuen, lauak kapa jantzirik. Felipe Juaristi

Itxoin zuen pausorik aditzen ez zen arte, eta, ateratzekotan zela, atso bat jaitsi zen **ezkaratzera** eta atea giltzaz eta morroiloz itxi zuen. Koro Navarro

Telefonicako liburukotea hartu eta Nafarroa etorbideko 20. **ezkaratzeko** bosgarren pisuko helbideari zegokion izena begiratzea erabaki zuen. Harkaitz Cano

Sukaldeko berotik **ezkaratzeko** hotzera. Itxaro Borda

Ezkaratzeko leihoko berina puskatu zuen eta gorputza zimardikatuz, handik karrikara herrestatu zen. Itxaro Borda

Ezkaratzeko ate astuna. Itxaro Borda

Begiradarekin segitu zion Mathildek, harik eta **ezkaratzeko** ilunpeak senarra guztiz irentsi zuen arte. Anjel Lertxundi

Pareko **ezkaratzeko** emakumearen bila joatea erabaki zuen. Harkaitz Cano

Krima konplitu zen hilabeteetan odola usnatzen zuen, **ezkaratzaren** garbitzeko plantatzen zenean, jariakor, mingar eta karats. Itxaro Borda

Ezkaratzetik pasatuz sukaldera nindoala, gure etxera zetorren auto baten burrunba entzun nuen. Daniel Landart

Etxe horretako **ezkaratz** gaineko gela zabalean ematen zuten meza. Xipri Arbelbide

Isiltasun hura oinazearen bertze aurpegi bat zen, hurrengo torturaren ataria, infernuko **ezkaratza**. Joan Mari Irigoien

2 (izenondoekin)

Estación de autobuses delakoaren **ezkaratze** alimalean sartu naiz, ea zer garraio mota, eta noiz, aurkituko dudan. Piarres Aintziart

Etxe barruan, lan tresnak gordetzeko erabiltzen zen **ezkaratz** zabal batean, Carlos ikusi nuen artista itxura zeukan ile zuriko kide batekin hizketan. Bernardo Atxaga

Ezkaratz zabal bat igaro nuen ondoren, eskailera igo nuen, eta nire adiskideak esandako atea ezagutu nuen. Josu Zabaleta

Marmol pitzatuzko **ezkaratz** zabala zeharkatu eta, kaiola itxurako igogailua alde batera utzita, eskaileretatik igo nintzen laugarren solairuraino. Alberto Ladron Arana

Arnasa hartu, errebolberra ferekatu (nahiago zukeen benetakoa balitz!), eta zeharkatu zuen **ezkaratz** dotorea. Migel Angel Mintegi

Igogailurik gabeko **ezkaratz** ilun horietako bat zen. Harkaitz Cano

Ezkaratz ilunean hara eta hona urrats handika bazebilen. Itxaro Borda

3 (hitz elkartuetan)

Lucy tupustean aurkitu zen **ezkaratz** irteeran tapoi bat osatzen zuten dozena bat pertsonarekin. Joxemari Iturralde

· Urrats-hots bizkor, kementsu eta ziurra aditu zen etxe-**ezkaratzean**; hurrengo, giltza-bira bat sarrailan. Mirentxu Larrañaga

Urratsez urrats egin zuen eguzkiak zipriztinduriko espaloi-bidea, buruarekin han-hemenka gur eginez nola etxe-**ezkaratzetan** puntu egiten ari ziren auzotarrei hala ostargi-belarren lorategietan makurtuta artatsu zihardutenei ere. Mirentxu Larrañaga

4 sukaldea.

Etxean dena **ezkaratzean** egiten zen, txaparen epelean; txapa zahar eta beltza baina garbia beti, amak gauero hondarrarekin eta ozpinarekin garbitzen zuena. Ana Urkiza

Gela bakarreko apartamentu goibel bat zen, eta bainugelan metalezko dutxa bat, adreiluzko horma batera ematen zuten bi leiho, eta **ezkaratz** ezin nanoago bat edarien hozkailu batez eta bi erregailuko gas-sukalde batez hornitua, besterik ez zeukan. Oskar Arana

Ezkaratzean jadanik afaririk inondik ere ez dela ageri egiaztatu du, ez mahai gainean, ez hozkailuan, ez mikrouhinean. Sonia Gonzalez

Etxeko gizona nintzenez gero, **ezkaratzeko** armairutik hirulau gaileta ostu eta salako mahaian eseri nintzen, gailetak jaten. Joseba Sarrionandia

Ezkaratzean janaria prestatzen dudan bakoitzean nire bizimodua normala eta arrunta dela iruditzen zait. Sonia Gonzalez

---

ezkarda *iz* eztena, ezpala.

Orduan, eta ez diot orain inori ere **ezkarda** sartu nahi, publikoki salatu genuen gai hau H. Knörr, B. Oihartzabal, I. Sarasola eta nik neuk, gure ustez diru publikoarekin elkarte pribatu bat negozioa egiten ari zelako sos pribatuekin beste enpresa bat bere aldetik eta bere baliabideekin lan bertsua egiten ari zelarik. Pello Salaburu

Igandean azkazalak mozten dituanak **ezkardak** izain ttu beatzetan. Pello Zabala

---

ezkargi ik **ezkoargi**.

---

ezkaroztar *izond/iz* Ezkarotzeko biztanlea.

Realak azken bi denboraldien hasieran Cesar Krutxaga fitxatzeko agertu duen asmoak protagonista bihurtu du **ezkaroztarra** derbietan. Berria - Kirola

ezkas ik **eskas**.

ezkata **1** *iz* arrain eta narrasti batzuen azala eta hegazti batzuen hankak estaltzen dituzten xafla txiki gogorretako bakoitza.

Uretako piztietatik, hegalak eta **ezkatak** dituzten guztiak jan ditzakezue. Elizen arteko biblia

Hegatsak ditu, eta **ezkatak**, arrainek bezala. Berria - Gaiak

Hegalik eta **ezkatarik** ez duten uretako piztiak debekatuak dituzue. Elizen arteko biblia

Izokina, zilar landua iduri, **ezkatak** metal leunduan gubilez joka eginda dauzkana; korrokoia, **ezkata** handiagokoa, eta zakarrago zizelatua. Karlos Zabala

Rhineko zamoak kutxetatik ateratzen ari ziren, kolore urre arrexkakoak, eder-ederrak beren gorrixkatze metalikoekin, haien **ezkaten** xaflek brontzez estalitako esmalte banakatuak ziruditela. Karlos Zabala

2 irud/hed

Bat-batean, begietatik **ezkata** bezalako batzuk erori zitzaizkion eta ikusten hasi zen berriro. Elizen arteko biblia

Psoriasia dermatosi kronikoa da, eta **ezkata** zuriz eratutako plaka gorriak dira ezaugarri nagusiak. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan)

Esku baten gainean, hatz txikitik hurbil, sardinzar **ezkata** bat zeukan, han nakar orban bat ipintzen ziona. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
dira ezkatak (3); **eta ezkata** (3); **eta ezkatak** (5)

ezkatadun **1** *iz* ezkatak dituen izakia.

Zeren nondik aurrera jo dezakete **ezkatadunek**, urak tokirik utziko ez balie? Xabier Amuriza

Begira lehen-lehenik animaliei; horrelaxe sortuak direla ikusiko duzu basapiztia mendikoiak, horrelaxe gizateria eta horrelaxe, azkenik, **ezkatadun** isilak eta hegalari mota guztiak. Xabier Amuriza

Urak amore ematen eta bide likidoak zabaltzen omen dizkie **ezkatadun** distiratsuei, arrainek atzean tokiak uzten baitituzte, eurok aldendu ahala ura etor dadin. Xabier Amuriza

2 (izenondo eta izenlagun gisa)

Inoiz baino iheskorragoa antzeman nuen gorputz **ezkatadun** eta lizun hura, inoiz baino burujabeagoa. Eider Rodriguez

Hori ez dela askotan ikusten kartzinoma **ezkataduna** kentzeko egiten diren ebakuntzetan. Hasier Etxeberria

Horra gainera gizateria, eta **ezkatadun** animalia igerilari isilak eta azienda gizenak eta piztiak eta hegazki koloretsuak. Xabier Amuriza

Gizakiak baino altuagoak eta gorpuzkera handiagokoak ziren, adar-**ezkatadun** kota estua beste arroparik ez zeramaten. Agustin Otsoa

ezkatatsu *izond* ezkatak dituena.

Neskak aurpegi **ezkatatsua** ageri zuen, hauts merkeak erabiltzearen ondorioz, eta sofaren besoan eserita zegoen. Mirentxu Larrañaga

Han-hemenka basiliskoaren sudur **ezkatatsuari** mokoka. Iñaki Mendiguren

Buckbeakek bere belaun **ezkatatsuak** tolestu zituen eta gero tentetu egin zen berriro. Iñaki Mendiguren

Begiek egon behar zuten lekuan, azal **ezkatatsu** mehe eta grisa baino ez zegoen, hutsik zeuden begi-zuloetan hedatuta. Iñaki Mendiguren

ezkel *(orobat **ezkail** g.er.)* **1** *izond* begiez mintzatuz, okerra.

Petronio txikia zen, beltza, eta begi batetik **ezkela**. Juan Garzia

Bere Begi **ezkelaz** so geratzen zitzaien eta zehazki atzematen zituen haien manerak eta haien azpijokoak. Juan Garzia

Elizaren atean direnek begi **ezkailaz** behatzen zaituzte. Ramuntxo Etxeberri

Nire aurrean ate bat zabaldu eta zur eta lur gelditu nintzen, hainbeste denboraren ostean bat-batean Bandi Citromen begi ñimiño eta **ezkelak** ikusi bainituen nire aurrean. Urtzi Urrutikoetxea

2 begi-okerra.

Bikote horrekikoa ez al nuen bukatu, hara non konturatzen naizen Gaetanok neskato **ezkel** bat aukeratua zuela beretzat, edo beharbada neskatoak aukeratu zuela bera. Juan Garzia

3 ***begi-ezkel*** *izond* begiak ezkelak dituena.

Erdi itsua izan daiteke bat, miopea, begi-**ezkela**... bista ona eta ikusi ezina daukanari bakarrik pasako zaio oharkabean baserriaren laudorioak ez dituela ia inoiz baserritarrak egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

ezkeldu, ezkel(du), ezkeltzen **1** du *ad* begiez mintzatuz, okertu.

Osasun kalea irakurri ahal izan nuen, begiak **ezkeldu** eta idazpuru batean. Inazio Mujika Iraola

2 okertu.

Lo-gutizia izugarriak sareetara tirriatzen zuela zirudien eta, buru astuna papora **ezkelduz**, tu malgua ezpainetarik isurtzen zitzaiola, zurrunga larriak eroaten zuen amatxi. Itxaro Borda

Zu joanez geroztik, Euskal Herria anitz aldatu da, ez guk nahi bezainbat, baina aldatu da -kamera **ezkelduz** mintzatu zen Agata. Itxaro Borda

Basotik arrastaka irten, gosez eta bakardadez **ezkelduta**, eta topatu zuen lehenbiziko atzeko atea jo zuen beltzen esparruan Wilmingtonen. Anton Garikano

ezkenatoki ik **eszenatoki**.

ezker **1** *iz* bihotza dagoen aldea. ant. **eskuin**.

Ez eskuinera eta ez **ezkerrera** ez okertzeko moduan. Santiago Iruretagoiena

Ibiltzen garenean ez dugu ez aurrera ez atzera jotzen, ez **ezkerrera** ez eskuinera egiten. Felipe Juaristi

Noizbehinka, ordea, **ezkerrera** eragiten zion lemari eta eskuinera gero kolpe bortitz batez. Anjel Lertxundi

Hantxe geratu nintzen berak **ezkerrera** egiten zuen bitartean. Ramon Saizarbitoria

Ezkerrera hartu nuen, Urumearen gaineko zurezko zubian barna. Koldo Izagirre

Uzpuruko basoak iraganik Bianditz mendiaren gailurrera baino lehentxeago **ezkerrera** dagoen sakondura leunean. Koldo Izagirre

Zunbillondoko muinotik goiti, **ezkerrerantz**. Koldo Izagirre

Konpasaren punta jarriz eskuineko zentroan eta, erradio bezala, **ezkerrean** duen puntuak markatzen dion neurria hartuz, zirkulu bat egingo da proszenioaren **ezkerreko** aldea ukitzeraino. Santiago Iruretagoiena

Eskailera buruaren **ezkerrean** eta eskuinean ate bana daude. Josu Zabaleta

Beren **ezkerrean**, hogei bat metro haratago eta uretan belaunetaraino sartua, gizon bat dago arrantzan. Pello Lizarralde

Neure **ezkerretan**, murrutzar beltzari erabat itsatsirik, txabola mordoa ikusi nuen ilaran. Txillardegi

Ezkerretan arku txapala dago, handik ur hotza darion iturburuaren begirale xume. Txillardegi

Zure etxetik irtenda, **ezkerretara** ala eskuinetara? Jose Morales

Portaletik irtetean, Mateo Zugasti gure kaletik **ezkerretara** jo, eta aldapa leunean gora muttur bat egin ondoren... itsasoa agertu zait aurretik! Txillardegi

Arrebak leihotik burua aterata bakarrik, eta **ezkerretara** begiratuz, ikus zezakeen murrutzar beltzairearen zerrenda bat, Esnategi kalearen amaieran. Txillardegi

Ezkerretatik zetorren, itsas hegitik. Matías Múgica

Bonaparteren ofizial ohia, fusil bala batek zauritu zuelako herrenka egiten duena **ezkerretik**. Felipe Juaristi

Ez al da, bada, ispiluaren aurrean eskuina **ezker** bihurtzen, eta **ezkerra** eskuin...? Joan Mari Irigoien

· Karbono dioxidotik garbiturik eta oxigenoa berriturik, birika-zainetara biltzen da odola, eta bihotzaren **ezkerreko** aldera itzultzen. Irene Aldasoro

Ezkerreko eta eskuineko muturretan. Santiago Iruretagoiena

Egoera-diagrama batean, perpausa sortzeko **ezkerreko** hasierako puntutik abiatzen gara, bidea jarraituz, eskuinaldeko bukaerako punturaino, betiere gezien norabide berean. Itziar Laka

Ezkerreko motorra murrizten badut, eskuineko motorraren albo ekarmena berdindu beharko dut, hegazkinak **ezkerrerantz** joko baitu. Josu Zabaleta

Ezkerreko goardia ere lurrean datza, ahoz goiti, mosketoia oraindik eskuan. Pello Lizarralde

Neure alabaz hitz egin diot, nola hila den, neure alabarekiko ezkonbidaiaz, Korintoz, aspis sugegorriaz, nola egin zion ausiki **ezkerreko** bularrean, eta alabaren ehorzketaz, eta neure etorkizunaz. Joxe Austin Arrieta

Ezkerreko eskuarekin kapelari eutsiz. Joxemari Urteaga

Mintzamenarekin -eta hitzean oinarritutako pentsamendu mota ugarien programazio-instrukzioekin- zerikusia duten oroimen-arrastoak **ezkerreko** hemisferioan kontzentratzen dira. Irene Aldasoro

Ezkerreko hemisferioko lobulu okzipitalean erasan zion apoplexiaren ondorioz, grisaren gamako koloreetan ikusten hasi zen beraren ikus-eremuko eskuinaldean zegoen guztia. Xabier Olarra

Haren ezpainen bustia senditu nuen **ezkerreko** masailan. Daniel Landart

Ibiltzerakoan eskuaz laguntzen zion **ezkerreko** hankari, ia nabaritu ere egiten ez zen herrena gutxiagotzeko. Josu Landa

Badaki ametsak azkenik odol usaina hartzen duela, eta izen asko ere bai: Jena, Austerlitz, Wagram, non bala batek **ezkerreko** hankatik utzi zuen betiko herren. Felipe Juaristi

Komuna **ezkerreko** bigarren ate hori duk. Hasier Etxeberria

Andromedaren eskuineko eskua Casiopearen irudiaren gainean geratzen da, eta **ezkerrekoa** Piscis borealaren gainean. Santiago Iruretagoiena

Zeharka zihoan Matias treneko korridoretik, eskumako maleta aurrean eta **ezkerrekoa** atzean. Unai Elorriaga

Oinetakoak urratuak zituen, **ezkerrekoaren** aztala hautsia. Eneko Bidegain

Kontua zen, etorri zitzaion gogora, nola lotu eskuineko masa **ezkerrekoarekin**. Anton Garikano

Pliushkinek laztantxoak egin zizkien bi ilobei, eta, bata eskuineko belaunean eta bestea **ezkerrekoan** harturik, gora eta behera eragin zien. Jose Morales

Legeak agintzen zuen xingola eskuineko besoan eraman behar zutela; emakume hark, ordea, **ezkerrekoan** zeraman. Anjel Lertxundi

Orduan, tximistaren pare, zartako ikaragarri bat eman dio neskari eskuin masailean, eta, hurrena, kemen berberaz, **ezkerrekoan**. Patxi Zubizarreta

Ibai aldera abiatu ziren biak, gizonezkoa eskuin hankatik herrenka, eta emakumezkoa **ezkerrekotik**. Felipe Juaristi

Artega ari zen gimnasioan borroka aurreko jausitxo ohi baino dantzariagoak oin-punta **ezkerrekotik** eskumakora tartekatuz. Josu Landa

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Deigarriena, **ezker** orrialdeko azpiko zatidura: "Praktika satanikoak gure hirian?". Aingeru Epaltza

Ezker betazala goratu zitzaion, begiaren zuria bistan utzirik. Unai Iturriaga

Eskuin eskua **ezker** besondoan jarriz. Joan Mari Irigoien

Matela guztia hanpaturik sumatzen nuen, eta orobat mindurik eskuak, **ezker** belauna eta gerruntzea. Aingeru Epaltza

Fusta mehe batekin **ezker** izterrari kolpetxo batzuk jotzen zizkion bitartean, kartazal beltz bat luzatu zion kolore bereko eskularruan ezkutatutako eskuak. Joxemari Urteaga

Ariannak sastakaia sartu zion bere maitale izan zen gazteari, eskuinez **ezker** saihets aldean, eta odoletan utzi. Felipe Juaristi

Ene hitzak aditu bezain fite, zutitu zen kapitaina; paratu zuen mahai gainean **ezker** eskua, zeinean baitzeraman pipa; luzatu zuen eskuina; jarri zidan hura besagainean. Joan Mari Irigoien

Berehala, hoztu baino lehen, **ezker** eskutik ateratako eraztun lodiaren zigilua jarri zion gainean. Joxemari Urteaga

Ezindua sentitzen da, kirio guztiak eten balizkio bezala tirazoa **ezker**-besagainera eta lepora zabaltzen zaionean. Pako Aristi

Bera herrira etorri aurretik portuan izandako istripu batek **ezker** hankako herren nabarmena utzi zion saritan. Joxemari Urteaga

Jertse grisaren **ezker** poltsikora eraman zuen eskua, bihotzaren albora. Joxemari Urteaga

3 ezkerreko eskua.

Beste eskua, Safok eskuina eta Egeak **ezkerra**, elkarri emana zuten, bata besteari lotuta baitzebiltzan, bizitzan ez ezik, bizitzako unerik gehienetan ere bai. Felipe Juaristi

Ahula dut **ezkerra**, eta piano jotzen hasi nintzenetik, beti egin behar izan dut ahalegin berezia **ezkerra** trebatze aldera. Anjel Lertxundi

Ukitu zituen, orduan, Sansomek jauretxeari erdi-erdian eusten zioten bi zutabeak, bataren kontra eskuina eta bestearen kontra **ezkerra** ipiniz. Elizen arteko biblia

Jakobek bere eskuak luzatu eta eskuina Efraim seme gazteenaren buru gainean ezarri zuen eta **ezkerra** Manases lehen-semearen buru gainean, eskuak gurutzatuz. Elizen arteko biblia

Hantxe itxaron zion besteari, eskuina gerrian, **ezkerra** hagari helduta. Alberto Barandiaren

Ukitu zituen Sansonek etxeari eusten zioten erdiko zutabe biak, eskuak ipini zituen haien kontra, batean **ezkerra** eta bestean eskuina, eta oihu egin zuen "Hil nadila, filistearrekin batera". Jose Antonio Mujika

Ezkerrak nagusi eta eskuinak laguntzaile behar dutenetan sortzen zaizkit arazoak, eskuina baldartu egiten baitzait eta kontrakarrean segitzen baitio **ezkerrari**. Anjel Lertxundi

Zuk limosna egitean, ez beza jakin zure **ezkerrak** zer egiten duen eskuinak. Elizen arteko biblia

Kabinatik irten eta eskudelari heldu zion **ezkerrarekin**. Koldo Izagirre

Printzeak eskuin eskua Mariaren gerri aldera eraman zuen eta **ezkerrarekin** Mariaren eskuina hartu eta poliki-poliki berarengana ekarri zuen. Felipe Juaristi

-Eskuinaz huts egin diat eta, ea **ezkerraz** -aldarri egin zidan-. Edorta Jimenez

Hartu zuen **ezkerraz** ziria eta eskuinaz langileen mailua, jo zuen Sisera eta burua txikitu zion. Elizen arteko biblia

Arkulariak ziren, geziak nahiz harriak jaurtikitzen trebeak, nola eskuinez hala **ezkerrez**. Elizen arteko biblia

4 *izond* ezkerreko aldean dagoena.

-Deus ez -erantzun dio iluntasunari, eskuinaz esku **ezkerra** igurzten duen bitartean-. Pello Lizarralde

Esku **ezkerrarekin** eskuinari zegozkionak egiteari utzi eta esku bakoitzari berea egiten utzi behar niola deliberatu nuen. Harkaitz Cano

Erribera 11, 1. **ezkerra**. Sonia Gonzalez

· Oso errentagarria duk diskurtso zuri errukitsu hori, endemas kaferik gabe konformatzen den funtzionario **ezkerrarentzat**. Patziku Perurena

5 *izond* pertsonez mintzatuz, idazteko eta, batez ere ezkerraz baliatzen dena. ik**ezkerti**.

Ezkerra izan ala ez, ezker eskua erabili zuen. Ibon Uribarri

Arerio hari Katxo deitzen zioten, **ezkerra** zelako. Koro Navarro

6 *adlag* ezkerretara.

Ezker, mendia bere pentze eta oihanekin laino pean dago. Piarres Aintziart

Hantxe, **ezker**, ikusten dut, Arga ibaia segitzen duela, barda ikusi dudan ingeles gizon ixil eta iduriz adin onekoa. Piarres Aintziart

Han, urrun, **ezker**, mendi hura: Iurramendia. Piarres Aintziart

Gizon bat, orain, **ezker**, belarretan hau ere. Piarres Aintziart

Utzi dut aitzinean Uhartera doan errepidea eta Monte Miravalles daukat orain, **ezker**: lehen patarra naski, egun. Piarres Aintziart

Bideak bat-batean **ezker** egiten du. Piarres Aintziart

Kapera hori, **ezker** ere, Santo Cristo de la Vera Cruz, eta beraz Rabanal del Caminoko lehen etxeak ez zaizkigu oraindik urrun. Piarres Aintziart

Tximinoa zauli bazen, ordea, doktorea ez zen gutxiago: jo eskuin, jo **ezker**, aingira baten gisa irristatu zen mahaipera. Josu Zabaleta

Zubiburutik **ezker** hartu, eta hona Villaba. Piarres Aintziart

Bodegas herria hor dut **ezker**. Piarres Aintziart

· Guretzat unibertsoan ez dago mugarik inorantz, ez **ezker** ez eskuin, ez gorantz ez beherantz. Xabier Amuriza

7 *iz* Legebiltzarrean eta, alde aurrerakoia, ezkertiarren multzoa.

Duela hamar urte *Destra e sinistra* (Eskuina eta **ezkerra**) liburua eman zuen argitara, bere libururik salduena izan dena, eta erreferentzia garrantzitsua izan da Italiako politikagintzan. Berria - Kultura

Txilen bi **ezker** eta bi eskuin daudela diote batzuek. Berria - Harian

Ezkerrak eskuinak eskaintzen ez duena eman behar du. Berria - Kultura

Zentro-eskuina eta zentro-**ezkerra** hasi dira bozen ostean zer egingo duten aztertzen. Berria - Mundua

Humala nazionalistak nekazari eta indigena txiroen sostengua jaso du; zentro-**ezkerreko** hautagai Garciak, aldiz, enpresaburuena. Berria - Mundua

Eskualdetako bozetan garaipena egiaztatzea espero du **ezkerrak**. Berria - Mundua

Aralarrek **«ezker** subiranista zibila» egituratzea izango du xede. Berria - Euskal Herria

Eskuina ez du kontuan hartu; soilik **ezkerrarentzat** agintzen du. Berria - Mundua

Oraintxe nago konbentziturik ezerk eta inork ez duela suntsitu **ezkerreko** politikagintza Europan, sozialistek eurek beste. Hasier Etxeberria

Ezkerreko alderdiek sustatzen dute Jean Lissar "berdeen" alderdikoa. Herria

Arnaldok dio, ostera, **ezkerreko** abertzaleak bereganatzeko soilik egin duela proposamena Ibarretxek. Hasier Etxeberria

Ezkerreko oposizioak dudan eman ditu auzapezak aipatu diru sartzeak. Herria

Nola ahaztu kazetari batzuen eta **ezkerreko** intelektualen eldarnioak, beren ideologiak itsubidera ekarriak, arrazoimenari uko eta pentsamenduaz beste egitera hain lotsagarriro limurtuak? Juan Garzia

Ezkerreko zinegotziok, ez duzue uste mozio bat naizela? Koldo Izagirre

Egia esan, gehienek gorrotatzen zuten Rasputin: **ezkerrekoentzat** mistiko atzerakoia eta antisemita arrazista zen; eskuinaren ustetan, ahozabal haren baldankeriek zalantzan jartzen zuten herriaren aurrean erregetzak izan behar zukeen irudia. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Gu abertzaleok, gu **ezkerrekook"** eta hola hasten zen, esanez ez zirela hemengoak, erbestekoak zirela. Iñaki Segurola

Parisen beraz, oro har eskuindarrek badute **ezkerrekoek** baino boz gehiago. Herria

Lurraldetan, ez da deus uste-gabekorik gertatu, ez baitzen ere gertatzen ahal, jakinaren gainean denetan **ezkerrekoek** badutela gehiengo ederra. Herria

Kontua zen, etorri zitzaion gogora, nola lotu eskuineko masa **ezkerrekoarekin**. Anton Garikano

Humala nazionalistak nekazari eta indigena txiroen sostengua jaso du; zentro-**ezkerreko** hautagai Garciak, aldiz, enpresaburuena. Berria - Mundua

8 ***ezker-eskuinetan, eskuin-ezkerretan***

Nire edari saminetik edan bai, edango duzue; baina nire **eskuin-ezkerretan** eseri ahal izate hori ez dago nire esku inori ematea. Elizen arteko biblia

Ezker-eskuinetan ate nabarrak ziren eta lurrean koadrodun baldosa merkeak, koskekin batzuk Iñaki Zabaleta

9 *ezker alde* ik **ezkerralde**.

10 ***ezker ala eskuin***

Ezker ala eskuin, askok egiten duten oharpena: alderdieri denetz baitezpada neren hautagaiaren hola hautatzea, hori alderdi baten egitekoa denetz… Hortaz ere bada eztabada frango ez idurika. Herria

Erreka bitan banatzen bada ere, urak erabakitzen duela, eta ez guk, **ezker ala eskuin**, nondik eramango gaituen. Imanol Zurutuza

Mariaren esku batek - **ezker ala eskuin** ezin zehaztu mezulari gazteak- krabelin zuria bota zion Kopenhageko printzeari, baina loreak zalgurdiko kristala jo, eta lurrean geratu zen maspildurik. Felipe Juaristi

11 ***ezker edo eskuin***

Aspekoak bikain sakatzen du, ederki irauten dio kantxa erdiko pilota hartu-emanari eta beste inork ez bezala sartzen da airez; berdin **ezker edo eskuin**, berdin boleaz zein sotamanoz. Berria - Kirola

Ezker edo eskuin begia bezain zeurea. Hasier Etxeberria

12 ***ezker eta eskuin*** *(orobat* ***eskuin eta ezker*** *g.er.)* ezkerrera eta eskuinera.

Ezker eta eskuin, arbola ttipi pollitak eta laster behi edo zaldi aterpe zahar baten ondotik, xaradi bat, zernahi zuhaixka sistakor elkarri lotuak daudela. Piarres Aintziart

Azofra bere karrika nagusi luze eta ederrarekin agertzen zait: hemen ere, etxeak eraiki dira, **ezker eta eskuin**, Caminoari esker. Piarres Aintziart

Adiskide anitz handik joanak ziren **ezker eta eskuin** lantegia erre zenetik. Marzel Etxehandi

Gorantza leunean kale hertsiaren bukaeran, zuhaitz ederrak **ezker eta eskuin**. Txillardegi

23an ibili naiz herri horretan zer topografia mota duen jakin nahiz eta horretako kurritu naiz **ezker eta eskuin**, proiektu bat egiteko asmoarekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bertzeen oharkabean ihes egin nahi duelakoa jokatuz, burua apaldu eta urrats luzean zeharkatu nuen erredakzioa, **ezker eta eskuin** beldurtu antzo begiraka. harmail nagusiko berrikuntzen bigarren fasea amaituta, prentsarako gunearen **ezker eta eskuin** ezarri dituzten kabinak estreinatuko dituzte. Aingeru Epaltza

Euskal-Herriko parropiez eta Iraultza handiko gertakariez zernahi lekukotasun eta argitasun bildu zuen, zernahi paper zahar miatuz ere **eskuin eta ezker**. 70 eta 80 hamarkadetan **ezker eta eskuin**, mugaz bi aldetan, hiri, herrixka edo auzo guzietan ibiliak dira, kantaldiz kantaldi. Israeldarrak, ordea, oinak busti gabe igaro ziren itsas erditik, ur-harresiak zituztela **ezker eta eskuin**. Herria

Burua astintzen zuen zakurrak, batera eta bestera, **ezker eta eskuin**, pasio animal berberaz alde bietara. Harkaitz Cano

13 ***ezker mutur*** muturreko ezkerra.

Edozein herritan, Espainian edo Frantzian, esaterako, panorama politikoa argia da: eskuin edo erdi-eskuineko indar sendo bat dago, ezker edo erdi-ezkerreko beste indar sendo bat eta, gero, muturrak ere egon daitezke; **ezker mutur** bat edo eta eskuin mutur bat. Berria - Euskal Herria

Ezker abertzalea eta **ezker muturra** izan dira ezezkoaren aldeko ahotsak. Berria - Harian

Ezaren alde eskuin muturra Le Pen, de Villiers eta bertze batzu, **ezker muturra** ere Arlette Laguillier, Besancenot, Marie-George Buffet eta Chevènement, hitz batez frantses nazionalistak. Herria

Gauzak horrela zeuden, ustekabean egunkarian atera zenean zazpigarren artikulua onartuta zegoela eta **ezker muturrak** ere baiezkoa eman zuela. Koldo Biguri

Italiako Justiziaren manipulazioak **ezker muturrari** egotzi zizkion atentatu guztiak eta 20.000 pertsona erruztatu zituen. Berria - Mundua

Milioia inguru dira Frantzian **ezker muturrari** botoa ematen dietenak, eta LCR-LO koalizioak «mugimendu sozialen, emakumeen eta internazionalisten» defendatzailea izan nahi du Estrasburgoko Parlamentuan. Berria - Euskal Herria

Ezkerreko familia baten semea, **ezker muturrera** joan da 1968-ko urtearen ondotik. Herria

Ezker muturretik, LO eta LCR alderdiek zerrenda batua osatu dute. Berria - Euskal Herria

13a *ezker muturreko* *(orobat* ***ezkermuturreko*** *g.er.)* muturreko ezkerra. *ik beherago* **16.**

Alderdi hura gerra aurreko POUM **ezker muturreko** alderdiaren oinordeko-edo zen, ideologia aldetik behintzat. Juan Kruz Igerabide

Ezker muturreko LCR alderdi troskista biziki pozik dago igandeko emaitzekin. Berria - Harian

Eskuineko eta ezkerreko, eskuinburuko eta **ezkermuturreko**, beste zonbait ere arte hortan sartu nahi, laster ageriko zoin eta nun. Herria

Ea Peppone alderdikideak, **ezker muturreko** gorriek aho batez 7garren artikulua onartu zutenez gero, izendatu nahi ote zuen elizarentzat gestio-batzorde bat. Koldo Biguri

-Onerako ala txarrerako, ez naiz ni nor hori esateko -esan nuen, bisitaria **ezker muturrekoa** ala kontrakoa zen igarri ezinik-. Edorta Jimenez

Gerra Zibilean, errepublikaren alde borrokatu zen, eta areagotu egin zituen lehenagotik zeuzkan ideia komunistak: POUM zeritzan alderdian sartu zen, **ezker muturrekoekin**; Juan Kruz Igerabide

14 *ezker-eskuin* *(orobat* ***eskuin-ezker*** *g.er.,* ***ezker-eskuma*** *g.er. eta* ***ezkereskuin*** *g.er.)* *adlag*

Giharren tentsio-joko perfektua nire aurrean, **ezker-eskuin** txandakaturik: estutu, lasaitu, estutu, lasaitu. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurbildu eta bi musu utzi zizkion, **ezker-eskuma**, masailetan. Joxemari Urteaga

Etsaia ikusitakoan, haren aurka egiten zuen ezpata eskuan, inork atzetik jarraitzen ote zion begiratzeke eta, gehienetan, **ezker-eskuin** ezpataz joz, **ezker-eskuin** ezpataz zaurituz, bidea egiten zuen, lagunak sar zitezen. Felipe Juaristi

Lepoa **ezker-eskuin** bihurrikatu zuen, zelatari eske. Aingeru Epaltza

Eta argimutilaren ondoan, bi olibondo **ezker-eskuin**. Elizen arteko biblia

Gero, ospitaletik atera nintzenean, **ezkereskuin** begiratu nuen, baina e z zegoen inor nire esperoan. Fernando Rey

Etorriko dira, badatoz, hankak **eskuin-ezker** jasoz, sigi-saga, estropezurik larriena saihestu nahian. Karlos Linazasoro

15 *ezker pareta* ik **ezkerpareta**.

16 *muturreko ezker*

Hemen, ezker abertzalea deitzen dena gehiago da **muturreko ezker** abertzalea. Berria - Euskal Herria

Muturreko ezker abertzaleak ez zuen onartu legea eta EA-EAJ abstenitu egin zen. Berria - Euskal Herria

Muturreko ezker abertzaleak egin behar lukeen azterketa da, Jaurlaritzaren proposamena ardatz moduan hartu eta horri ekarpenak egiteko aukera baliatzea. Berria - Euskal Herria

Muturreko ezker abertzalearen inguruan aurrerapen batzuk gerta daitezke, elkarrizketa eta jarduera politikoa aurrerapen politikoaren oinarri bakarra direla ulertzeko. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

adierazi zuen ezker (7); **ala ezker** (7); **alai ezker** (9); **alai ezker paretan** (7); **aralar eta ezker** (7); **atharriko ezker** (12); **atharriko ezker paretean** (11); **atzo ezker** (14); **azpimarratu zuen ezker** (7); **bai ezker** (8); **baigorriko ezker** (7); **baina ezker** (33); **baina ezker abertzaleak** (7); **baita ezker** (9); **bat ezker** (15); **batean ezker** (7); **bere ezker** (16); **bereziki ezker** (7); **bilbo ezker** (12); **burua ezker** (25); **burua ezker eskuin** (16); **buruari ezker** (9); **buruari ezker eskuin** (9); **da ezker** (80); **da ezker abertzalea** (9); **da ezker abertzaleak** (15); **da ezker abertzalearen** (20); **dauka ezker** (7); **dela ezker** (15); **den ezker** (14); **dio ezker** (22); **dira ezker** (24); **ditu ezker** (23); **ditu ezker abertzaleak** (9); **donostia ezker** (10); **du ezker** (116); **du ezker abertzalea** (10); **du ezker abertzaleak** (39); **du ezker abertzalearen** (8); **du ezker abertzaleko** (8); **du ezker batuak** (16); **du ezker hankako** (9); **duela ezker** (9); **duen ezker** (11); **dut ezker** (7); **dute ezker** (21); **ea eta ezker** (15); **edo ezker** (18); **egin du ezker** (10); **egin zuen ezker** (12); **ere ezker** (28); **esan zuen ezker** (11); **eskuin edo ezker** (7); **eskuin eta ezker** (107); **eskuin ezker** (22); **eta ezker** (522); **eta ezker abertzale** (9); **eta ezker abertzalea** (33); **eta ezker abertzaleak** (45); **eta ezker abertzalearen** (40); **eta ezker abertzaleari** (7); **eta ezker abertzaleko** (37); **eta ezker batua** (23); **eta ezker batuak** (24); **eta ezker batuaren** (13); **eta ezker batuko** (8); **eta ezker eskuin** (27); **eta ezker eta** (7); **euskal herriko ezker** (8); **ez da ezker** (8); **ez ezker** (12); **ezker abertzale** (90); **ezker abertzale legez** (12); **ezker abertzalea** (378); **ezker abertzalea eta** (16); **ezker abertzalea ez** (15); **ezker abertzalea legebiltzar** (12); **ezker abertzalea prest** (8); **ezker abertzalea taldeak** (25); **ezker abertzalea taldearen** (8); **ezker abertzalea taldeko** (10); **ezker abertzaleak** (700); **ezker abertzaleak bere** (10); **ezker abertzaleak bide** (7); **ezker abertzaleak deituta** (8); **ezker abertzaleak deitutako** (8); **ezker abertzaleak egindako** (17); **ezker abertzaleak ere** (16); **ezker abertzaleak eta** (23); **ezker abertzaleak ez** (24); **ezker abertzaleak gatazka** (17); **ezker abertzaleak herri** (7); **ezker abertzaleak kudeatutako** (12); **ezker abertzalean** (38); **ezker abertzalearekin** (55); **ezker abertzalearen** (414); **ezker abertzalearen aurka** (20); **ezker abertzalearen aurkako** (20); **ezker abertzalearen eta** (14); **ezker abertzalearen izenean** (8); **ezker abertzalearen kontra** (10); **ezker abertzalearen kontrako** (13); **ezker abertzalearentzat** (15); **ezker abertzaleari** (101); **ezker abertzaleari buruz** (7); **ezker abertzaleko** (311); **ezker abertzaleko beste** (15); **ezker abertzaleko hainbat** (18); **ezker abertzaleko hautetsiek** (15); **ezker abertzaleko herri** (8); **ezker abertzaleko kide** (8); **ezker abertzaleko kideak** (18); **ezker abertzaleko kideek** (9); **ezker abertzaleko kideen** (13); **ezker abertzaleko militante** (14); **ezker abertzaleko ordezkariak** (10); **ezker abertzaleko zenbait** (9); **ezker abertzalekoak** (10); **ezker abertzaletik** (20); **ezker alboko** (29); **ezker albokoa** (20); **ezker albokoak** (7); **ezker aldean** (59); **ezker aldeko** (30); **ezker aldera** (38); **ezker aldetik** (13); **ezker anitzeko** (8); **ezker batua** (129); **ezker batua berdeak** (27); **ezker batua eta** (22); **ezker batuak** (147); **ezker batuak eta** (14); **ezker batuan** (7); **ezker batuaren** (54); **ezker batuari** (9); **ezker batuko** (101); **ezker batuko koordinatzaile** (17); **ezker batuko koordinatzaileak** (7); **ezker belauna** (7); **ezker belaunean** (9); **ezker belauneko** (8); **ezker besoa** (17); **ezker edo** (11); **ezker esku** (7); **ezker eskua** (45); **ezker eskuan** (23); **ezker eskuarekin** (9); **ezker eskuaz** (17); **ezker eskubi** (7); **ezker eskuin** (340); **ezker eskuin begiratu** (24); **ezker eskuin eragin** (12); **ezker eskuin eta** (8); **ezker eskuin mugitu** (16); **ezker eskuin mugitzen** (11); **ezker eskuineko** (10); **ezker eskuko** (34); **ezker eskuko hatz** (16); **ezker eskuma** (11); **ezker eta** (66); **ezker eta eskuin** (43); **ezker hanka** (8); **ezker hankako** (43); **ezker hankan** (12); **ezker hegala** (34); **ezker hegalean** (95); **ezker hegaleko** (57); **ezker hegalekoa** (31); **ezker hegalekoak** (20); **ezker hegalerako** (9); **ezker hegaletik** (33); **ezker independentista** (7); **ezker independentistako** (9); **ezker muturreko** (28); **ezker oinarekin** (8); **ezker oineko** (11); **ezker pareta** (65); **ezker paretako** (32); **ezker paretan** (121); **ezker paretaren** (18); **ezker paretean** (114); **ezker subiranista** (8); **ezker zangoan** (7); **ezker zangoko** (7); **g ezker** (8); **gero ezker** (9); **haren ezker** (8); **hartu zuen ezker** (7); **hazparneko ezker** (19); **hazparneko ezker paretean** (14); **herriko ezker** (16); **horretan ezker** (8); **izan da ezker** (7); **jai alai ezker** (9); **javier madrazo ezker** (12); **kanboko ezker** (8); **madrazo ezker** (13); **madrazo ezker batuko** (8); **muturreko ezker** (9); **nafarroako ezker** (25); **nafarroako ezker batuak** (10); **nafarroako ezker batuko** (9); **nire ezker** (10); **pilota ezker** (7); **sanoki ezker** (8); **sanoki ezker paretean** (8); **zein ezker** (9); **zen ezker** (15); **zion ezker** (20); **ziren ezker** (13); **zituen ezker** (12); **zuen atzo ezker** (7); **zuen ezker** (101); **zuen ezker abertzalea** (12); **zuen ezker abertzaleak** (26); **zuen ezker abertzalearen** (10); **zuen ezker abertzaleko** (7); **zuten ezker** (17); **zuten ezker abertzaleko** (7)

abertzale eta ezkerreko (7); **ala ezkerreko** (8); **baina ezkerreko** (14); **baita ezkerreko** (7); **bat ezkerrean** (7); **bat ezkerreko** (7); **batek ezkerreko** (8); **bere ezkerreko** (7); **bestea ezkerrean** (7); **burua ezkerreko** (7); **da ezkerreko** (20); **du ezkerreko** (14); **dute ezkerreko** (10); **esku ezkerra** (8); **eskuineko ala ezkerreko** (8); **eskuinetik ezkerrera** (20); **eta bestea ezkerrean** (7); **eta ezkerra** (17); **eta ezkerrak** (10); **eta ezkerrak** (10); **eta ezkerrarekin** (10); **eta ezkerraren** (8); **eta ezkerrean** (20); **eta ezkerreko** (152); **eta ezkerrekoa** (15); **eta ezkerrekoak** (8); **eta ezkerrera** (14); **eta ezkerretara** (14); **eta ezkerretik** (11); **europako ezkerraren** (7); **euskal herria ezkerretik** (27); **ezkerra eta** (20); **ezkerrak ez** (7); **ezkerrak ez** (7); **ezkerraren arteko** (7); **ezkerrean eta** (16); **ezkerreko aldea** (9); **ezkerreko aldean** (24); **ezkerreko alderdi** (57); **ezkerreko alderdia** (12); **ezkerreko alderdiak** (23); **ezkerreko alderdiek** (25); **ezkerreko alderdien** (17); **ezkerreko aldetik** (9); **ezkerreko alternatiba** (10); **ezkerreko begia** (23); **ezkerreko belaunean** (10); **ezkerreko besoa** (23); **ezkerreko besoan** (10); **ezkerreko beste** (11); **ezkerreko bi** (7); **ezkerreko demokratak** (8); **ezkerreko ertzean** (7); **ezkerreko esku** (10); **ezkerreko eskua** (35); **ezkerreko eskuan** (24); **ezkerreko eskuarekin** (13); **ezkerreko eskuaz** (21); **ezkerreko eta** (27); **ezkerreko eta eskuineko** (9); **ezkerreko gobernu** (9); **ezkerreko gobernuak** (8); **ezkerreko hanka** (11); **ezkerreko hankan** (10); **ezkerreko hautetsiak** (7); **ezkerreko ikuspegitik** (8); **ezkerreko indar** (9); **ezkerreko izterrean** (8); **ezkerreko koalizioak** (12); **ezkerreko koalizioaren** (8); **ezkerreko mugimendu** (11); **ezkerreko oposizioa** (12); **ezkerreko oposizioak** (36); **ezkerreko oposizioko** (9); **ezkerreko politika** (10); **ezkerreko politikak** (8); **ezkerreko sorbaldan** (7); **ezkerreko talde** (9); **ezkerrekoa eta** (13); **ezkerrekoa nirea** (16); **ezkerrekoa nirea izango** (16); **ezkerrekoak eta** (11); **ezkerrera eta** (14); **ezkerrera eta eskuinera** (11); **ezkerretara eta** (11); **ezkerretara hartu** (13); **ezkerretara jo** (15); **ezkerretik eraikitzeko** (7); **ezkerretik eraikiz** (13); **ezkerretik eskuinera** (58); **ezkerretik eskuinerako** (7); **ezkerretik eskuinerat** (8); **ezkerretik eta** (13); **herria ezkerretik** (27); **herria ezkerretik eraikiz** (13); **k titularra ezkerrekoa** (15); **titularra ezkerrekoa** (15); **titularra ezkerrekoa nirea** (15); **zen ezkerreko** (10); **zentro ezkerra** (14); **zentro ezkerrak** (9); **zentro ezkerrak** (9); **zentro ezkerraren** (13); **zentro ezkerreko** (73); **zentro ezkerreko koalizioak** (10); **zuen ezkerreko** (21); **zuten ezkerreko** (10)

---

ezkerburu *iz* muturreko ezkerra.

Liga Komunista Iraultzaleak agertzen du **ezkerburuan** bere zerrenda. Herria

Ezkerburuko politikariak aise urrunago ere doatzi, desafioka bezala nolazpait bai gobernuari eta bai Chirac presidentari. Herria

Ezkerburuko bi hautagai agertzen dira Baionan, Francis Charpentier eta Evelyne Damestoy. Herria

Xabi Larralde abertzaleak eta Francine Endewelt **ezkerburukoak** beren xede eta arrangurak orroitarazi dituzte. Herria

Bainan **ezkerburukoak** baztertuz edo bederen utziz gomitatu gabe… Eta komunixtak hasarre, egiazko batasun bat sustatzekotan, ezkerraldeko guziek behar luketela gomita,

deus berexkuntzarik gabe… Hortaz ari dira eztabadan. Herria

---

ezkereskuin ik **ezker 14**.

---

ezkerka *adlag* **

Euskadiko prentsa nahi dute, Egin euskañolez, eta hori bahituz gero, Euskadi Información egiten segiko omen dute euskañolez **ezkerka**. Patziku Perurena

---

ezkerkada *iz* ezker esku edo oinez jotako kolpea.

Nihatek egindako bi jaurtiketa eta Garridok urrunetik jotako **ezkerkada** bat izan ziren aukera bakarrak. Berria - Kirola

Itxura ona zuen lehiak, baina Bartzelonak berehala erakutsi zizkien hortzak txuri-urdinei: Van Bronckhorstek aurrena, urruneko **ezkerkada** batekin, eta Eto'ok gero, eskuin aldetik egindako barnekaldi bizi batekin. Berria - Kirola

Paretara arrimatzen den ezker kolpe ahul horietako bat, **ezkerkada** baino. Berria - Ekonomia

Mark Gonzalezek ere bitan jaurti zuen arriskuz, baina lehen **ezkerkada** Casillasek gelditu zion, eta bigarren eskuinkada gora joan zitzaion, area ertzetik. Berria - Kirola

Dionisosen **ezkerkada**. Unai Iturriaga

---

ezkerkeria *iz* ezkerrari edo ezkertiarrari dagokion egite makurra.

Utz beraz bazterrerat eskuinen eskuinkeriak eta ezkerren **ezkerkeriak**. Herria

Neska ironikoa zen Beatriz, Imanolekin asko sartzen zena, eta sarritan Imanolen uste politikoak ziren haren gezi dialektikoen helburua: beraren abertzaletasun sutsua, eta, batez ere, beraren **ezkerkeria** marxista-leninista. Iban Zaldua

---

ezkermuturreko ik **ezker 13**.

---

ezkero *post* **1** -z gero. (aditz baten era burutuaren eskuinean)

Ona izan **ezkero**, motxak ez du lotsarik. Iñaki Segurola

Jaungoikoa gure alde **izan** ezkero, ¿nor gure kontra? Txillardegi

Zailtasunak zailtasun, aukera izan **ezkero** Gorteetara joango nintzateke. Berria - Euskal Herria

Zure aitak agindu ez zuen ba ezer gertatu **ezkero** Ingoren kargu egingo zela? Anjel Lertxundi

Aldian aldiko eta tokian tokiko inperioen dogma estuak direla medio, zenbat holako usario eder galdu ote ditu gure Europa zaharrak bidean, nahiz axalez martingala hutsak iduri, sustraietara jo **ezkero** bostetan milaka urtetako jakintza enpiriko ederra gordetzen dutenak! Patziku Perurena

-Pastilla hau hartu **ezkero** etzegok lo egin beharrik. Iñaki Segurola

Partikula elementalak puntu infinitesimalak lirateke onenean ere, baina prezisio jakin batekin begiratu **ezkero**. Iñaki Segurola

Behin erabiltzen ikasi **ezkero**, askoz eramangarriagoa da dialektika. Hasier Etxeberria

Han hankarteko zerak dantzatu behar dira, gernubideak eta unibertso ezkutuetako zulo beltzak, eta begia eta hizpidea hankartean jarri **ezkero**, ez dago bi sexuak berdintzeko modurik. Iñaki Segurola

Galde horri erantzun positiboa eman **ezkero**, beste egoera batean geundeke berehala. Berria - Harian

Mutur ederrak jartzen dizkizute broma bat egin **ezkero**! Xabier Mendiguren Elizegi

2 (bestelakoetan)

Arjel deritzan bere jaioterritik atera zen **ezkero**, ez du oraindik bataioa hartu beharreko hiltzeko estuasunik izan. Patxi Ezkiaga

Paretako irudietan denetatik zegoen, eta irudipena zeukan azken bisita **ezkero** aldaketak nabarmenak zirela. Josu Landa

Hala gertatzen da XVII. mendearen azken aldia **ezkero**, bizitik egindako pintura garatzearekin. Josu Zabaleta

Oso kezkaturik bainengoen negargarrizko gau hura **ezkero**. Josu Zabaleta

Esana baino gehiago ikusia, abuztua **ezkero** jaitsi da eguzkia. Pello Zabala

Emakume urkatua ikusi zuen hartan bezalaxe, ordutik **ezkero** hainbatetan bezalaxe, munduan krudelkeria nagusi zelako ziurtapena areagotu, indartu eta zabaldu egin zitzaion barnean, gorputzeko hezur-mamiak zartatzerainoxe ia. Felipe Juaristi

Ordu **ezkero**, tarteka itzuli zen eskolak ematera. Iban Zaldua

Freud **ezkero** ondotxo dakigu esna gaudela ikusten duguna ez dela errealitatearen kanpoko azal urdina baino. Joxerra Garzia

Ostirala **ezkero** dabil edanean. Irene Aldasoro

Nola jotzen zuen atean beti kax-kax bere erratz-kirtenarekin, nik gaueko hamarrak **ezkero** zure ganbaran segitzen baldin banuen. Joxe Austin Arrieta

-Badakizu, jauna -arrapostu zuen gizonak-, zortziak **ezkero** prezioa aldatu egiten dela. San Rokeak **ezkero**, lurra beltz! Koldo Izagirre

Bere kontramaisuaren burua txikitu zuela liskar batean, eta urkamendia zeukala zain Holandara **ezkero**. Juan Garzia

Eraikinaren pasabideek hain sare konplexua osatzen zuten, ezen, behin barrura **ezkero**, inor ezin baitzitekeen handik irten. Juan Garzia

Egoera horretan, albeoloen eta kapilarren artean dauden paretetatik zehar barreiatzen da oxigenoa odolera, eta, odolera **ezkero**, globulu gorrietako hemoglobina-molekulek harrapatzen dute berehalaxe. Irene Aldasoro

Idazkera biguina, ixurbera, argia du... behin eskuetara **ezkero** txoratzen du Joannatéguy-k. Marzel Etxehandi

Ez naiz honetara **ezkero** begi-bistakoa ukatzen hasiko. Aingeru Epaltza

Horretara **ezkero**, erraza zen dignostikoa: ferro-zerioa zen, pizgailuen harritxo arruntak eginak diren aleazioa. Juan Garzia

Behin hartara **ezkero**, gainera, makurragoa zen Kristinaren zaletasunarenganako arretarik den mendrena erakustea. Aingeru Epaltza

Berniz bat sustantzia egongaitza da definizioz: hain zuzen ere, bere karreraren puntu batera **ezkero**, solido bilakatu behar du. Juan Garzia

Eta behin honaino **ezkero**, mundu gertatuko zoriontasunaren antioinetan, ohartzen naiz hemen ere ez dela gauzarik gertatzen, eta eguzkia eta ilargia bera ere odoletan etzan direla alfergurak menderaturik. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batera ezkero (4); **begiratu ezkero** (5); **behar izan ezkero** (3); **behin hartara ezkero** (3); **behin horretara ezkero** (4); **egin ezkero** (13); **egon ezkero** (3); **eman ezkero** (8); **ezkero eta** (3); **ezkero etzegok** (4); **hartara ezkero** (4); **hartu ezkero** (7); **hartu ezkero etzegok** (4); **hasi ezkero** (5); **hau hartu ezkero** (4); **honetara ezkero** (9); **horretara ezkero** (10); **hura ezkero** (4); **izan ezkero** (23); **jarri ezkero** (11); **jo ezkero** (3); **nahi izan ezkero** (5); **ordu ezkero** (8); **utzi ezkero** (3)

---

ezkeroztik *post* -z gero.

Behinola, Makariew hiriak bereganatzen zituen salerosleen bileraren onurak, baina, 1817 **ezkeroztik** Nijni Novgorodi dagokio abantaila hori. Karlos Zabala

Dexente aldauta yagok ha, Ziarsolo yauna oin dala bost urte hil zan **ezkeroztik**. Txillardegi

Pazkoak **ezkeroztik** gordetako sos pizar batzuk ipurdian, klin, klan, klon, apenas izaten genuen besterik mutikotan.-Gabonak **ezkeroztik** zegok poto zahar hori arasean - esan zidan Gwilymek-. Patziku Perurena

---

ezkerpareta *(ETCn **930** agerraldi; orobat **ezker pareta** ETCn **934** agerraldi) iz ipar* pilotalekua.

Kanpoan, kiroldegia, **ezkerpareta**, aldagelak eta biltzartoki batzu. Herria

Aratsaldeko 4etan kantaldia Kiroldegi berrian, **ezkerparetaren** ondoan. Herria

Lehen berri horrek bai merezi du lehen aipamena nola diren kurutzarmenduak abiatu hego eta ipar aldeen artean, ez beti **ezkerparetan** baina trinketean ere. Herria

22.00, **ezkerparetan**, kontzertua: Ken 7, Ikus, Ekintza. Herria

Baigorriko **ezkerparetan** lekua eskas zen Mahastizainen egunean, partida hau ikusi nahi zuten guzien lekuratzeko. Herria

Irisarriko **ezkerparetan** jokatu ziren azaroaren 9 an. Herria

Miarritzen, norbait gauaz sartu da, tzarra gogoan, Euskal-Jai **ezkerparetan** eta hango muntadura batzu, ainitz gostatzen direnak, itsuski fundituak izan dira. Herria

Irailaren 26an, Lekuineko Xala **ezkerparetan**, kantaldi bat eginen da, igande aratsaldeko 4etan, kantari hauekin: Kattalin Indaburu, Naia Robles, Jojo eta Ramuntxo. Herria

Larunbat aratsean, Miarritzen, Plaza-berri **ezkerparetan**, indar-jokoak. Herria

Baigorrin, **ezkerparetan** kanporaketak hasiak dira 10ean. Herria

Igandean, Makean, LAB sindikataren 5. urtemugako ospakizunak **ezkerparetan**: bazkari, hitzaldi, bertsu eta musika. Herria

Beste behin, **ezkerparetako** pilotariek ere parte hartuko dute gaur hasiko den masters-ean (20: 00). Berria - Kirola

---

ezkerparetatto *iz* ezkerpareta txikia.

Ukan du aurtengo lehiaketak ere bere betiko arrakesta Erregelu **ezkerparetattoan**, hor pilota ainitz itzulikatzen delarik bereziki beso handi horiekin. Herria

---

ezkerralde *(orobat **ezker alde**) iz* **1** ezkerreko aldea.

Hamar mahai egin zituen eta sala handian ipini, bost eskuinaldean eta bost **ezkerraldean**. Elizen arteko biblia

Bigarren lerroan **ezkerraldean** Heterotopia idatzi du eta eskuinaldean Heterokronia. Joseba Sarrionandia

Eskuinaldean, **ezkerraldean**, alde orotan, enkantearen deiadarrek txirularenak bezain nota altuak barreiatzen zituzten jendetzaren mintzo baxu isilaren erdian. Karlos Zabala

Bost orga tenpluaren eskuinaldean jarri zituen eta beste bostak **ezkerraldean**. Elizen arteko biblia

Aurre aurrean oholtza, oholtzaren **ezkerraldean** mahaia eta mahaiaren gainean globomundia. Joseba Sarrionandia

Eta etxetik hurbilago eta **ezker alderaxeago**, "Teatro Circo"ren eraikin berria nekusan, bakar-bakarrik. Txillardegi

Orrazteko, **ezkerraldeko** ileak luzatu eta, soilgunea estalita, eskuinaldera eramaten zituen. Fernando Rey

Ezkerraldeko ate zuriaren atzean etenik gabe entzuten zen kolpetxoen hots zehatza, betiberdina. Jose Morales

Sarrerarako kale estutik **ezkerraldeko** kale zabalago baterantz hartu zuen kalesak. meatzari eta langileen **ezkerraldeko** zeru hautsez betea. Anjel Lertxundi

Beste hiru orban azalduak ziren nire gorputzaren aurrealdean, **ezkerraldeko** bularraren goialdean bata eta bularren beheitiko aldian beste biak **Ezkerraldeko** bigarren mahaikoek egin zuten txalo orain. Joxan Elosegi

- **Ezkerraldeko** azken apaleko azken liburua. Monika Etxebarria

2 (politikan)

Ezkerraldeko erradikalak eta euskal departamendua. Herria

Ezkerraldeko hautetsiek ere gauza bera egin dute. Herria

Komunixtak hasarre, egiazko batasun bat sustatzekotan, **ezkerraldeko** guziek behar luketela gomita, deus berexkuntzarik gabe… Hortaz ari dira eztabadan. Herria

Ezkerraldeko lixtaren buru Colette Capdevielle abokata. Herria

Orotarat, lau zerrenda Urruñan: Daniel Poulouauzapezarena, Robert Cazenave RPR-tiarrena, **ezkerraldekoa** eta abertzaleena, hunen buru Beñat Elizondo. Herria

Ezkerraldekoek ukan dute denetarat bozen % 40 nunbait han, eskuindarrek % 35. Herria

Komunixtek jakin-arazi dute ez direla beste **ezkerraldekoen** zerrendan sartuko. Herria

Aurten, berriz egin da **ezkerraldekoen** batasuna eta amesten dute auzapeza berriz komunixta izanen dela. Herria

3

Afrikaraino joaten ziren beharrean Kalaportuko arrantzaleak, guk Dakar, Freetown, Monrovia izenak klaseko globomundi loak hartuan bilatzen genituen artean, Afrika **ezkerraldean**, eta boligrafo gorriz auskalo nork azpimarratuak topatzen genituen. Joseba Sarrionandia

4 Bilboko itsasadarreko ezkerraldea.

Bilboko Metropoliko zenbait tokitan, **Ezkerraldeko** herri jakin batzuetan, esaterako, oso lur egoki gutxi dago etxebizitzak egiteko. Berria - Harian

CCOOri eta UGTri **Ezkerraldeko** gizartearen «borondatea» gutxiestea egotzi zieten ELAk, CATek eta Sestaoko hainbat gazte eragilek atzo, Navalen egindako elkarretaratzean. Berria - Ekonomia

SEPIk Sestaoko Naval ontziola talde berritik kanpo utzi izanak **Ezkerraldeko** ekonomia kinka larrian utziko duela uste du Unai Ziarreta EAko idazkari nagusiak. Berria - Ekonomia

«Madrilen morrontzatik askatzeko» garaia dela ohartarazi eta gizarte eragile guztien esku-hartzea galdatu zuten, «**Ezkerraldeko** 8.000tik gora enplegu desagertuko ez badira». Berria - Ekonomia

Horiez gain, Portugaleteko Elai-Alaiko dantzariak, **Ezkerraldeko** hainbat dantzari txiki talde, eta Tapia eta Leturiaren erromeria eta Kukuma taldearen emanaldia eskainiko dira. Berria - Kultura

Bilboko kale eszenekin batera, badira **Ezkerraldeko** meatzetan ateratako erretratuak eta Arratia aldean egindakoak. Joseba Sarrionandia

Ezkerraldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gertatutakoaren berri ematearekin batera, manifestaziora deitu du, datorren ostiral iluntzerako, hilaren 20rako. Berria - Euskal Herria

Barakaldoko epaitegian ikusten dira **Ezkerraldeko** eta Meatzaldeko kasuak, eta hor jende asko bizi da. Berria - Harian

Eguzkitza, **Ezkerraldeko** lehenbiziko euskaltzaina. Pello Salaburu

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bizkaiko ezkerraldeko (6); **eskuinaldetik ezkerraldera** (3); **eta ezkerraldea** (3); **eta ezkerraldean** (7); **eta ezkerraldeko** (6); **eta ezkerraldetik** (3); **ezkerralde hortan** (4); **ezkerraldea eta** (4); **ezkerraldean eta** (7); **ezkerraldean zegoen** (3); **ezkerraldeko ate** (3); **ezkerraldeko azken** (3); **ezkerraldeko eta** (14); **ezkerraldeko eta meatzaldeko** (11); **ezkerraldeko hainbat** (5); **ezkerraldeko hautagai** (3); **ezkerraldeko herri** (3); **ezkerraldera eta** (3)

---

ezkertar ik **ezkertiar**.

---

ezkertasun *iz* ezkerra izateko nolakotsuna.

Hamabi soken artean ikusiko genuela uste zuten herrian, inork ez zion ukatuko hartarako **ezkertasunik**. Koldo Izagirre

---

ezkerti *izond* pertsonez mintzatuz, idazteko-eta, batez ere ezkerraz baliatzen dena. ik**ezker**.

Horien guztien artean baziren aukerako zazpiehun gizon **ezkerti**; bakoitzak habailaz harria jaurtiki eta ile bat ere jo zezakeen, hutsik egin gabe. Elizen arteko biblia

25 urte egingo ditu abuztuan, eta atzelari **ezkertia** da. Berria - Kirola

Ezkertia eta atzelaria, palak duen jotzailerik bortitzenetakoa da. Berria - Kirola

Berdin-berdin jo ditzaket eskuinaz zein ezkerraz teknika handia behar duten esku bakarrerako pasarteak, inork ez lidake igarriko ez naizela **ezkertia**. Anjel Lertxundi

Tomas ezkertia zen, ordea, **ezkerti** konbentzitua izan ere, eta idatzi ahala eskua pasatzen zuen idatzitakoaren gainetik. Unai Elorriaga

Era berean -hau da, legez-, borreroa eskuin-**ezkertia** da, munduko borrero guztiak bezalaxe. Karlos Linazasoro

Eskuin-**ezkerti** [...]: Eskuineko nahiz ezkerreko poltsikoa trebetasun berdinez husteko gaitasuna duena. Xabier Olarra

---

ezkertiar *(ETCn **5.923** agerraldi; orobat **ezkertar** g.er.) izond* **1** ezkerreko alderdi batekoa edo alderdi baten aldekoa, ideia aurrerakoiak dituena.

Familia **ezkertiarrean** hazia, gerra garaian erbestera joan behar izan zuen, artean ume, munduan beste asko bezala. Joxerra Garzia

Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde aberatsenetan eta alderdi espainiazale eskuindar edo **ezkertiarren** artetik egin zuen lehen agerraldia Jelzale alderdiak eta, laster, hor berean erdietsi zituen bere lehen hautetsiak. Piarres Xarriton

Katedraletik ez urrun U.N.E.F ikasle **ezkertiarren** sindikatuaren egoitza: sozialistak, komunistak, anarkistak han kurutzatzen ziren, eta ere hara joaten gutarteko kristau zenbait. Piarres Aintziart

Iruditu zitzaidan erakundeetan boterea lortzera iristen diren neurrian zuzenbide laboraletik administratiborako bidea egiten duen jende **ezkertiarrez** osatuta zegoela bulegoa. Ramon Saizarbitoria

Faxismoaren aurka militante **ezkertiar** zintzoa izan zelako. Ramon Saizarbitoria

Zenbait politikari **ezkertiar** sozialdemokraten artean. Iñaki Heras

Frantziskotarren jarrera **ezkertiarrak** zigortu nahi izan ditu Ratzingerrek horrela, bai eta beste erlijio batzuekikiko izan duten jarrera irekia ere. Berria - Gaiak

Trantsizio berrian independentismoa eta sektore **ezkertiarrak** artikulatzeko. Berria - Ekonomia

Erdaldunak ziren, nafarrak, unibertsitateko giro **ezkertiar** espainolean haziak eta PCEtik pasatakoak edo haren altzoan ibiliak. Xabier Mendiguren Elizegi

New Playwrights Theatre-rekin zuen harremanaren ondorioz, *The New Masses* egunkari **ezkertiarrean** idazten hasi zen. Lopez de Arana

Urteetako fraide eta apaizen irakaskuntzak ateo eta **ezkertiar** bihurtu ninduten. Xabier Mendiguren Elizegi

Batzuk abertzale eskuindar, moderatu, poliki ibiltzearen zaleak, anaia Martin bezala; beste batzuk herrikoiago, jatorrago, **ezkertiarragoak**, anaia Jesus Mari bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Oinarrian liberala izan arren, Keynesen teoria oso du gogoko planteamendu **ezkertiar** eraberritzaileak, alegia, sozialdemokraziak. Iñaki Heras

Savaterrentzat, berdintasunaren aldeko ikuspegi **ezkertiar** edo aurrerakoian ez dago "inolako altruismorik, ongi ulertutako berekoikeria baizik". Iñaki Heras

Gurea ez da iraultza **ezkertiar** bat; gurea iraultza nazionalista bat da! Pako Aristi

2 (izen gisa)

Ezkertiar dauka bere burua, nahiz aberats okitu bat duen hartua lagun eta president ordetzat, nahiz hitzemana duen ere ez dituela Brasiliaren zorrak ukatuko. Herria

Ez da garaiko iraultzaile edo **ezkertiar** idealista utopiko anakroniko baten aldarrikapena. Iñaki Heras

Ezkertiar peto-petoa nauk -ekin dio Xerealek. Iñaki Iñurrieta

Gaztetan euskaltzale, abertzale eta **ezkertiar** sutsua izan nintzen, baina ondoren gero eta epelagoa. Juan Luis Zabala

Europatik Amerikarantz ihesi zihoazen judu eta **ezkertiarrei** bisatuak edo pasaporteak lortzeko ardura zuen. Pablo Sastre

Milizianoekin ibilitakoak, abertzaleak eta **ezkertiarrak** Bizkai aldera joan ziren antxintxiketan, larrua salbatuko bazuten. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure irakasle guztiak laikoak ziren, oso-oso laikoak; **ezkertiarrak** eta progresistak, oso progresistak beraien ustetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Nihilista izan daiteke hitz egokia, bai, ez bainintzen biziki abertzalea (euskarazko eskoletara ez apuntatzea, horren erakusgarri), ezta ikaragarri **ezkertiarra** ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduan gaztea ONG batean sartzen da edo izatezko **ezkertiarra** edo modagoko zerbait egiten da zerbait izateko. Iñaki Segurola

Nik komunistak eta bestelako **ezkertiarrak** beti izan ditut gogoko, gizalegezko kontua zen niretzat. Karlos Zabala

Zerikusirik ez zuen, ordea, ideologia falangistako euskaldunekin edo erreketeekin -hauek ere hamaika izan arren-; ezta gerran sozialisten edo beste **ezkertiarren** lerroetan borrokatu zirenekin ere. Bernardo Atxaga

Gero etortzen da damua, korromioa, borondate oneko **ezkertiar** ustekoen barruko diktadorearen piztuera. Xabier Mendiguren Elizegi

Aukera izan dut amerikar eta britainiar kazetariekin, **ezkertiar** kutsuaren ospea duten batzuk tarteko, hitz egiteko. Edorta Jimenez

Aitak, gainera, **ezkertiartzat** zuen bere burua. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abertzale eta ezkertiar (8); **abertzale eta ezkertiarra** (6); **abertzale eta ezkertiarrei** (3); **abertzale eta ezkertiarren** (7); **abertzalea eta ezkertiarra** (3); **abertzaleak eta ezkertiarrak** (3); **alderdi ezkertiarrek** (4); **alderdi ezkertiarrek eta** (3); **aukera ezkertiar** (5); **aukera ezkertiar eta** (5); **botoa aukera ezkertiar** (3); **burua ezkertiartzat** (3); **eta ezkertiar** (13); **eta ezkertiarra** (17); **eta ezkertiarrak** (13); **eta ezkertiarrak elkartzeko** (3); **eta ezkertiarrei** (7); **eta ezkertiarrek** (7); **eta ezkertiarren** (17); **eta ezkertiarren arteko** (6); **ezkertiar bat** (3); **ezkertiar eta** (46); **ezkertiar eta abertzale** (11); **ezkertiar eta abertzaleen** (6); **ezkertiar eta internazionalista** (3); **ezkertiar gisa** (5); **ezkertiarra dela** (6); **ezkertiarra eta** (13); **ezkertiarrak elkartzeko** (3); **ezkertiarrak eta** (6); **ezkertiarrek eta** (3); **ezkertiarren artean** (3); **ezkertiarren arteko** (7); **ezkertiarren arteko elkarlana** (3); **ezkertiarren eta** (5); **gobernu ezkertiarra** (3); **independentista eta ezkertiarrak** (4); **talde ezkertiar** (3)

---

ezkertiartasun *iz* ezkertiarra izateko nolakotasuna.

Ezkertiartasuna ote da, errotik iraitzi beharra dagoen biolentziaren kausa gaiztoa, antidemokratikoa, etab.? Joxe Azurmendi

Egia handia da asko hitz egiten duena nabarmendu egiten dela, eta niretzat bistan gelditu zen laster batean zenbateraino zen axalekoa haien **ezkertiartasuna**, zenbateraino faltsua haien sasiprogresismoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hasieran, badirudi bidaiariaren **ezkertiartasunak** markatuko duela liburua, baina, orrialdeek aurrera egiten duten neurrian, beste ardatz horrek hartzen du garrantzia. Berria - Kultura

---

ezkertzale *(orobat **ezkerzale**) izond/iz* ezkerraren aldekoa dena.

Abertzale, **ezkertzale** eta demokrata gisa, HZk EB honi ezetz esateko arrazoiak. Berria - Euskal Herria

Ezkertzale askok posible ikusten zuten herrialde bien batasuna. Berria - Ekonomia

Formazioa, aldiz, guztiz modernoa izan du: «Modernitate arizmendiarra jaso nuen, modernitate euskaltzalea, modernitate **ezkerzalea**. Berria - Kultura

BJP alderdiak, berriz, 185 lortu zituen eta eskualdeetako alderdi **ezkertzale** txikiek beste 137. Berria - Mundua

---

ezkertzaletasun *(corpusean **ezkerzaletasun** soilik) iz* ezkertzalea denaren nolakotasuna.

1968ko maiatzean, Parisen piztu omen zitzaion **ezkerzaletasunak**, Kubako eta Nikaraguako iraultzarekiko sinpatiak, horiek guztiek literaturak zerbaitetarako balio duela aldarrikatzen duen idazlearen prototipoa irudikatu zuten Cortazarrengan. Berria - Kultura

---

ezkerzale ik **ezkertzale**.

---

ezkerzaletasun ik **ezkertzaletasun**.

---

ezki 1 *iz* zuhaitz garaia, adaburua biribila, hostoak zabalak eta horzdunak, eta loreak usaindunak dituena*(Tilia platyphyllos* etab.).

Apainduria handiko lorategi batek eder ditu arrosak, kameliak eta tulipak, baina eder eta atsegingarri izan ohi du zuhaitz sendo baten geriza, hala nola haritz, arte edo **ezki** baten itzal babesgarria udako egun sargorietarako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haren irribarrea ikusi zuen, **ezki** bat eguteran, argiari argi gehiago lapurtzen. Felipe Juaristi

Gabriel Rua izan zenaren gorpua azalduko da Sintra Txikiko atarian azalduko da, **ezki** baten adarretan zintzilik, soka batez itoa. Felipe Juaristi

Ezkontza barruko maitasunaren zuhaitza omen da **ezkia**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezkiz inguratu Herriko Plazara heldu nintzenean, argi zurpailek mugatzen zuten ilunpean, lanpara baten pean, itzal luzea begimen neukan. Itxaro Borda

2 (izenondoekin)

Vaclav Feuersteinek gotorlekuan zuhaitz bat sartu zuen, **ezki** zuri eta txiki bat, eta egunero zaintzen zuen arretaz eta maitasunez, kanpoan zainduko lukeen moduan. Felipe Juaristi

Plaza karkana ederra dugu Hazparnen eta **ezki** gazteak ari dira edertzen. Herria

Lorategi hartan magnolia eta **ezki** handiak zeuden, sasizko hesi batek inguratuta. Koro Navarro

Azkenean, alde bietan **ezki** hostotsuak zituen bide batek jeneralaren herrixkan sartu zuen Txitxikov. Jose Morales

Harkaizti batzuetako zuhaitzen hostoak horixkatu eta ximeltzen hasten direnean, **ezki** hostozabalarenak batik bat, [...]. Pello Zabala

Ohandotarren etxea errepidean zegoen, baina lorategi eder batentzat lekua uzteko bezain aparte, non, zaindari modura, sei **ezki** bikain baitzeuden. Koro Navarro

Neguko dirdai errauts-koloreak eta espaloietako **ezki** biluziek areagotu egiten zuten inoiz luxu handikoa izandako barridearen, ez dut esango hondamendia, baina bai halako abaildura naroa. Anjel Lertxundi

Leihatilaz kanpora begiratu nuen azken aldiz, eta begiz jo nituen -jada gogoan ez ditudan arren- txori irazekiak, paperezko loreak eta aingeruren bat lurraren **ezki** berandutuen gerizpean. Karlos Linazasoro

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Babes bila zebilen geriatrikoko emakume buru balditu bat eraman du gaurkoan, **ezki**-adar hautsi batek jota. Anjel Lertxundi

Ezki-adar itxura jarri zitzaion: zurruntasun bera, gogortasun bera, zuritasun bera. Felipe Juaristi

Esku artean daukadan **ezki** hostoari beha gelditu naiz, galderaren baten zain. Koldo Izagirre

Semea hor zeukan alta, gohainaren uhinek gibelondoa zitzikatzen ziotela, salda usaintsua, **ezki**-ura edo kafe beltza sukaldetik ekartzen. Itxaro Borda

Sendagileak agindutako **ezki**-urak ez zion deus egiten. Anjel Lertxundi

Laugarrenean, zingiratik irten eta **ezki**-baso batera sartu ginen oreinen bat ehizatzera. Felipe Juaristi

---

ezkibel 1 *izond* zakarra, mukerrra.

Haurtzain **ezkibelak** igogailuraino lagundu gintuen. Aingeru Epaltza

Juanillo Moxolo morroi **ezkibel** eta hitz gutikoa baitzen. Aingeru Epaltza

Gero, lehen kankarro ginebra eskatu nion Antonio **ezkibelari**. Aingeru Epaltza

Domingori, lehen bezain **ezkibel**, bakantzen eta urdintzen hasia zitzaion ilaje beltz sarria. Aingeru Epaltza

Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut semeen errefusak ez ote zuen Domingo horren gizon isil eta **ezkibela** egin, emazte oihu-laster eta espantu-sarria ez bezalakoa. Aingeru Epaltza

2 (adizlagun gisa)

Aurreneko neskarekin **ezkibel** eta doi bat lotsaturik hasi naiz. Patxi Zubizarreta

Domingori, lehen bezain **ezkibel**, bakantzen eta urdintzen hasia zitzaion ilaje beltz sarria. Aingeru Epaltza

---

ezkibeldu *izond* zakartua, mukertua.

Autoko jarlekura gau ia osoan josita egon izanagatik ere, hutsik ikusiriko lehen mahaira erroiztu nintzen Charly **ezkibelduarekin** batean, Ximurrari eta Ttipiri barrara hurbiltzen utzita. Aingeru Epaltza

---

ezkila 1 *iz* kanpaia.

Elizetako **ezkilak** peza osoz eginak dira; gaia zuten kobrea edo urraidea, ezteinuarekin nahasirik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Elizako **ezkilak** gauerdia jo arestian hasi duen euri zintzarrak sugearen ezkatak bailiran izarniarazten ditu zoruko lauzak. Koldo Izagirre

Ezkilak kasik toki guzietan urtuak izan ziren gerla beharretarako omen. Herria

Goizeko oren bat eta erditan **ezkilak** jo zuen. Xipri Arbelbide

Zerbitzariari deitzeko **ezkila** jo zuen. Xabier Olarra

Ezkilak joka. Koro Navarro

Iberoko elizako **ezkilek** goizeko 11:00ak direla iragarri dute. Berria - Kirola

Tranbiako gidariak **ezkilari** eragiten zion aldiko, bihotzak jauzi egiten zidan, ni banintz bezala tranbiak azpian harrapatzeko arriskuan zegoena. Anjel Lertxundi

Ezkilarik ez da entzuten. Marzel Etxehandi

Tristurarik handiena elizetako eta kaperetako **ezkilak** entzutea zen. Juan Garzia

Gure inguruan **ezkilak** goizeko hamaikak jotzen ari, eta ni Hannari hizketan, eta erreguka, mesedez, gauzak diren bezala hartzeko; baina alferrik. Joxe Austin Arrieta

Ganduak baldin badu zarratzen portua / Alferrik joko digu **ezkilak** ordua. Koldo Izagirre

Harritzen zen doktore gaixoa, jakinik dorreko **ezkilak** aspaldi joak zituela bederatziak, eta afari nazkagarriren bat jan beharko zuela. Josu Zabaleta

Eliza dorrean **ezkilak** ezti eztiki abiatzen dira eta bakearen kantua errepikatzen dute. Michel Oronoz

Ezkilak eta txintxarriak, traktore soinuak, urruneko moto baten durunda. Hasier Etxeberria

Ezkilak eta eskuturrekoak janzten zituen orkatiletan; dantzan egiten zuenean, kanpai hotsa entzuten zen basamortu guztietan. Koro Navarro

Iruñean nago, katedraleko **ezkilen** dandek iratzarri naute eta egin dudan lehen gauza irratia piztea izan daLerrokatu ditugun izen horiek **ezkilan** zizelkatuak dira. Iñaki Zabaleta

· Behin ahuntz baten **ezkilak** asaldatu gintuen, baina segidan berriro isiltasuna mendafin-usainezko muino haien gainean. Joxe Austin Arrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta **ezkila** tintinlari besterik ez naiz. Elizen arteko biblia

Metalezko mihitxo txikiak ahalegin bizian eta izuturik jotzen zuen **ezkila** durunditsuaren ertza. Jose Morales

Denbora hartan, **ezkila** pisu bat garraiatu baino nahiago zuten tokian berean egin eta hortan zabilzan herriz herri **ezkila** egileak, hala-nola hemen, Tolasako huntan. Herria

Teilatuaren gainean, azkenik, osotara herdoildutako burdinazko arku batetik zintzilik, **ezkila** zahar bat ikusi dut; behinola beilariei dei egiteko prest egona. Txillardegi

Horretan sarrerako ateko **ezkila** handia, etxebarruko **ezkila** handia jo zuten. Josu Zabaleta

Iruñeko Santa María elizako **ezkila** haundia, 3 327 liberakoa, bere mingain, uztarri eta gaineratekoekin, Luzaidetik eraman zutela bost idi parek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Andreak eskaileretan beheiti egin du **ezkila** ttipia joka hasi denean. Pello Lizarralde

Ezkila txiki baten dilina gero eta hurbilago. Lopez de Arana

Tarteka uharrien biribilketa, leuna hau ere, ia **ezkila** mehe baten soinuaren gisa. Joxe Austin Arrieta

Zorigaiztoko **ezkila** horien atzetik, balaku samurra ematen du ondoren datorren isiltasunak. Koro Navarro

Counseling Center-ko neure langelatik goizeko zortziak jotzen zuten Incarnationgo kanpandorreko **ezkilak** entzun nituen. Gotzon Garate

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, orobat**ezkil**)

Baziren ere **ezkila** egileak, Kantabriatik etorriak, jadanik ikusiak ditugunak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gure **ezkil** dorrea artoski ari dute berritzen, ezagun den bezala. Herria

Hiru minutu eskas ere ez zuen irauten lasaitasunak, tarteka eliza erromatar baten **ezkila**-joaldiak, eta berriro han ziren klaxonak. Joxe Austin Arrieta

Uste zuten **ezkila** dangadaren soinuak ohi zuena baino gehiago irauten bazuen auzoan norbaitek laster hil behar zuela. Pako Aristi

Larunbat eguerdi-arte bat zen, azkenean, nire gurasoenean gosari aski xelebrea egin ondoren -haiek elizako **ezkila**-jotzea hutsesten!-, Herriko Etxera abiatu ginenean, ezkontza-legea betetzera. Joxe Austin Arrieta

Antzinako festa-egun hauen aztarrenak badira oraindik Frantzia Iparraldean eta Britainia aldean: Berryko bailaretan, adibidez, kanpai-hots eta **ezkila** errepika bereziak jotzen dituzte azaroaren 1ean; eta 2an, kanpai-joleak diru-eskea egiten dute herrian barrena. Pello Zabala

On Camillo, kanpandorreko kanpaitokian alai saltoka eta brinkoka, herrian inoiz entzundako **ezkila**-dantzarik infernutarrena ari zen eragiten. Koldo Biguri

Nola ontzi bat ur bete botatzen zuen burutik behera, tranbiaren **ezkil** jokoak alboko kaletik aditzen zirela. Javi Cillero

Hil-kanpaiek ere **ezkil**-joko berriak asmatu zituzten hileta egunean, eguneroko errepikak aldatuz. Xabier Etxabe

Domingo de Ballenilla **ezkila** urtzaile eta egilea, asturiarra, Trasmiera merindadeko Isla herrikoa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Dilin-dalan aditzen zen **ezkil** hotsa dorrean. Xabier Olarra

Niretzat distiratzen eta niretzat jotzen zuten lanpararen argiek eta **ezkil** hots zeremoniatsuek. Koro Navarro

Hilen ehorzlearen **ezkila**-soinura munduratu zen Cyril Tourner. Juan Garzia

Bi **ezkil** danbek ordua gogorarazi diote.Luzaiden baziren garai batez **ezkila** egileak. Pello Lizarralde

Katedralaren kanpai handiak mutu zirauen, elizetako **ezkila** multzoak isilik zeuden. Karlos Zabala

Ilunpe hartan atzeman nituen, aldamenean, zapi batzuekin erdi estaliriko bi edo hiru karabina kanoi, eta metalezko tronpa itxurako zerbait, **ezkil**-ahoko eta zabala, ikusi batean mendiko korneta bat zela uste nuena, eta trabuko bat izaki. Koldo Izagirre

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hil **ezkilak** Gasteizen. Berria - Harian

Hurko baten hil-**ezkilak** geure barrunbean joka dauzkagunean, lehentxeago edo geroxeago, etsi beharra dago, erotuko ez bagara. Iñaki Segurola

Su-**ezkila**! Jon Muñoz

5 ***ezkila dorre*** *(orobat* ***ezkiladorre*** *g.er.,* ***ezkil dorre*** *g.er. eta* ***ezkildorre*** *g.er.)*

Itxaropen dugu luza gabe ikusiko dugula gure **ezkila dorrea** gapelu berriarekin, denen pozgarri. Herria

Gure **ezkila dorrea**: Lanak aitzina doatzi eta lehengo itxura ari da agertzen, denen plazer osoarentzat. Herria

Ezkila dorrea aldamio azkarrez hari dute inguratzen. Herria

Granitozko bitxi erraldoi, farfaila bezain arina, igotzeko zurubi bihurriak dituzten dorrez eta **ezkila dorre** lerdenez betea. Josu Zabaleta

Azken finean, ez baitzuten nahi hiltzear zegoen mundu baten pastel koloreko argazkiei -baserri maitea, baxurako ontzi liraina, **ezkila-dorre** baketsua, legatza koxkera eran buztinezko kazolan- egokitu lekizkiekeen oin-testu melengak idaztea baino. Ramon Saizarbitoria

Ez da **ezkila-dorre** asko geratzen orain. Mirentxu Larrañaga

6 ***ezkila lore*** *(corpusean* ***ezkilalore*** *soilik, adibide bakarrarekin; ETCn* ***ezkila lore*** ***18*** *agerraldi eta* ***ezkilalore*** ***16*** *agerraldi)*

Mugetatzea eta ezkongai-lore ere deitzen zaio, baita **ezkilalore** ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elizako ezkila (3); **eta ezkila** (10); **ezkila berriaren** (3); **ezkila dorre** (6); **ezkila dorrea** (12); **ezkila dorrearen** (5); **ezkila dorreko** (4); **ezkila edo** (3); **ezkila egileak** (4); **gure ezkila** (23); **gure ezkila dorrea** (7)

---

ezkiladorre ik **ezkila 5**.

---

ezkilalore ik **ezkila 6**.

---

ezkilategi *iz* ezkila dorrea.

Mitiai, bizar ilegorriko gizaseme ihar eta luzea bera, berehala igo zen erdiko zaldiaren gainera, eta, hor jarririk, haren piurak herriko **ezkilategia** edo, hobeto esan, putzutik ura ateratzeko erabiltzen den urkila zekarren gogora. Jose Morales

---

ezkilatto *iz* ezkila txikia.

Bertzalde, **Ezkilattoa** deitzen ginuena, 1983 an lekuz aldatua izan zen eta dorrean ezarria. Herria

---

ezkilatxo *iz* ezkila txikia.

Gau-mahaian zilarrezko **ezkilatxo** bat zegoen eskueran: astindu egin zuen. Xabier Olarra

Jaungoikoak belarri zolia dauka eta oso ondo entzuten du baita hurraren tamainako **ezkilatxo** batez deitzen badiote ere. Koldo Biguri

Ondoren, eskopeta berriz kargatu, berriro **ezkilatxoa** jo eta apaizak, bere onera itzulita, lasai jarraitu zuen meza esaten. Koldo Biguri

Ezkilatxo doratuak, elur malutak, aingerutxoak bufandekin. Joseba Sarrionandia

Pedroren seme txikiak zenbat ekartzen zion zenbatzen hasi baino lehen, Martin kalean zen atzera, almazenaren ateko **ezkilatxoaren** hotsa dantzan, Asuni lehenago zergatik ez zion eskatu eta madarikazioka, iletik behera euri tantak irristatzen zitzaizkiola. Alberto Barandiaren

Ez zen mugitu, hantxe gelditu zen eserita, zilarrezko **ezkilatxoa** eskuan, Nini iritsi arte. Xabier Olarra

---

ezkildorre ik **ezkila 5**.

---

ezkilka *adlag* ezkila joaz.

Munduari ari dira **ezkilka**. Koldo Izagirre

---

ezkilore *iz* ezkiaren lorea.

Eta urre koloreko **ezkiloreak** mallos eta alfirinetik erortzen dira. Agustin Otsoa

---

ezkin ik **izkina**.

---

ezkina *iz ipar* **ertza/txokoa**

Gune hori BAB-ko ibilbide **ezkinan** izanki eta, eztabaidak sortu dira errepide nagusirako sargia nondik izanen zen finkatzerakoan. Herria

Jende hezurrak izanki, arropa mutur batzu ere ba ondo hartan eta autobusean ibiltzeko karta baten **ezkina** bat ere, izenik ezin irakurtu haatik bainan karta hori 1993-koa zela, hori ageri. Herria

Hiru pilota, makila pare bat, okasionezko errota bakarreko txirrindola eta karrika **ezkinetan** ikasi abiltasunak eskuan, baina euro bihirik gabe sakelan, hara nola abiatu ziren 2000 garren urtean, hain segur urte horrek gure gogoetan zeukan magiak bultzaturik. Herria

Ortzirale huntan Bihotz Sakratuaren eguneko meza eginen da Olhako kapera **ezkinean** aratseko 7 etan, Xanprixkienea etxean. Herria

Herriko Etxe aitzinetik eta Génie zubi **ezkinerainoko** lau ehun metro horietan Errobi ezkerraldea besten bihotza bilakatua da, San Andres auzo guneari lehentasuna hartuz. Herria

Tarnoseko kontseiluak aho batez LBC lantegiak Baionako portu **ezkinan** dituen petrolio dupen emendatzearen kontra bozkatu zuen aitzineko asteazken arratsean. Herria

4,3 milioi euro ezarriko dira Aturri/Errobi **ezkinako** Echauguette zutabean, bai eta Chaho/Pelletier **ezkinako** antolaketetan. Herria

Lehen aldikotz, hor zauden ere, Posta **ezkinean**, Idoki sormarkako ekoizleak, beren ekoizpenen ezagutaraztera joanak. Herria

Espainiako ate **ezkinan** den Basses Pyrénées hotela hetsi berria da, jabe berriak apartamenduka saltzen hasia du. Herria

Xaho/Pelletier larrainean, Errobiko **ezkinan** finkatua da festibalaren bihotza. Herria

Horra nun berriz suak beste egoitza bat gauak gau funditu duen azkarki, aldi huntan Clemenceau plaza nagusiaren **ezkina** batean. Herria

Xoko horrek arrunt itxura txarra hartua zuen, obra eskasez, muntadura batzu herdoilak jaten ari, umitateak ere makurrak eginak, murru **ezkina** batzu lehertzen hasiak eta hola... Herria

---

ezkiotar *izlag/iz* Ezkiokoa, Ezkiori dagokiona; Ezkioko biztanlea.

Hilena ez ezik, bizien berri ere ondotxo zekien, bai, **ezkiotar** zuhurrak. Joxerra Garzia

---

ezkiribatu ik **izkiriatu**.

---

ezko[1] **1** *iz* argizagia.

Han ez zuen aurpegia hezurtsu eta **ezkoa** bezain horixka, baizik eta eder zegoen, barreka. Iñaki Mendiguren

Apezak zilarrezko gurutzea, **ezkozko** bi makilatxoak eta ur benedikatua ekartzen zituen. Itxaro Borda

Ziriak hitzak zizelkatu nahi izango dituenean, **ezko** izoztua mila zatitan hautsiko da, ispilu hauskor gisa. Anjel Lertxundi

Intsentsu eta **ezko** usainak agian, salbatuak zirelako seinale zitzaizkien. Itxaro Borda

Elizaren barnean begiak alha zeuzkan, hemen **ezko-argiak**, han bitrail koloretsua, hantxe oraino orgina erraldoiaren metalezko hodiak. Itxaro Borda

Itzala gure gainera makurtzen zen eta sotanaren hegalek, elizako **ezko argiak** gordetzen zizkigutela, arras galdua ginelako irudia geneukan. Itxaro Borda

Ezko-izkribua erlauntza da; nagusia, zentzutasuna; erleak, hitzak; eztena, izkribatzailea, beti zizta eta zuum! Anjel Lertxundi

Ezko-itxurako larruazala hain tenkaturik zeukan aurpegiko hezurren gainean, ezen burezurra ematen baitzuen haren aurpegiak. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ezko** (4); **ezko argiak** (3); **ezko izkribu** (3)

---

ezko[2] *izond* hezea.

Gero, barrualdera jotzean, mendi-bizkar eta muino-ttonttor, denak berde eta **ezko** nahi baditugu, eguzki galga ez baino lainoaren umela eta hezkura beharko dira eguzki errearen aurka. Pello Zabala

Sastraka-mutturrak goizeko ihintzen buxti frexko **ezkoetan**, goizero ikusmira berriz. Pello Zabala

ezkoargi *(orobat **ezkargi** g.er.) iz ipar* kandela.

Gerla ezberdinetako banderak airean zeuden, lore-sorta handiak kutxaren maldan, lau **ezkargi** bazterretan, kofoin gorri batean txilintx bi medaila eder eta herritarrek azken hamarkada hauetan etxe batetik bestera garraiatzen zuten zilarrezko gurutze pisua. Itxaro Borda

Gure "ilargi zaharretan" azken hatseraino, **ezkoargiak** pizten ditugu. Piarres Aintziart

Ezkoargi sagaratuak bezalako zurbil ageri zen eta intsentsu-sutontzi gisako dirdai biguna zerien begiei. Juan Garzia

---

ezkogin *iz* ezkoa egiten duen pertsona.

Herriko **ezkogin** bat aizkoraz zauritu ondoan nola sartu zen armagizon aditzera eman zuen gero. Aingeru Epaltza

Herriko **ezkoginaren** helbidea galdegin beharko dio ostalariari. Aingeru Epaltza

Isabel, **ezkogin** batekin ezkondua zuten ez aspaldi, 15 urte betetakoan. Aingeru Epaltza

---

ezkokara *iz* ezkoaren itxurakoa.

Paglietta gaixoa *lusus naturae* delakotik hurbil asko zegoen: txikia zen, bularrik ez aldakarik gabea, **ezkokara**, ximela eta begilabur ikaragarria. Juan Garzia

---

ezkomenientzia *iz* komenentziarik eza.

Kondizio horietan, analisi historiko eta sozialez biolentziaren **ezkomenientzia** frogatzeko posibilitate razionala (errore posible gabeko egia), razionalki nuloa da. Joxe Azurmendi

---

ezkon

1 *ezkon agiri (orobat **ezkontagiri**)* ezkontzako agiria.

Idatzi zuen **ezkon-agiria**, Moisesen legearen arabera Sara Tobiasi emaztetzat ematen ziola adieraziz. Elizen arteko biblia

Gero, amari deitu, papera ekarrarazi eta **ezkontagiria** idatzi zuen, 'emaztetzat ematen ziola' adieraziz, 'Moisesen Legearen arabera'. Jose Antonio Mujika

2 *ezkon ahaide* ezkontza bidezko ahaidea.

Azkenaldian // geure nazioko batek -goi-mailakoa jaiotzaz, // ondasun edo **ezkon-ahaiderik** falta ez zuena-, // burua galduta, gizakiak eta lurra utzi // eta, erbesteratze superstiziosoaren gisara, // leku lotsagarria bilatu zuen ezkutatzeko. Iñaki Mendiguren

2a *ezkon arreba* ik **ezkonarreba**.

2b *ezkon ahizpa* ik **ezkonahizpa**.

3 *ezkon aurreko (orobat **ezkonaurreko** eta **ezkontaurreko**)*

- **Ezkon aurreko** astean. Ander Irizar

Azkeneko eskutitza **ezkon aurreko** arratsaldekoa da. Ander Irizar

Horra zer izan ziren **ezkon aurreko** haien atseginak. Juan Garzia

-Eta bere **ezkonaurreko** abizena. Joxe Austin Arrieta

Greziako zenbait herritan, non oso altua baita gaitz horren eroalde heterozigotoen maiztasuna, eta ezkontzak konponduak baitira oraindik askotan, saiatu dira **ezkontaurreko** diagnostiko isilpekoak-edo egiten eta heterozigotoen arteko ezkontzak eragozten. Juan Garzia

4 *ezkon aurretiko*

Bera bezala Auschwitzetik bizirik irten eta senarra eta semea Mauthausenen hil zitzaizkion Elfriede Geiringer, **ezkon aurretiko** deituraz Markowitz izenekoarekin ezkondu zen. Josu Zabaleta

5 *ezkon bazkari* ezkontza bat ospatzeko bazkaria.

lehenago ere mozkortu nintzen noizbait, txikitan, **ezkon-bazkari** batean-edo, mahaietan sobratutako xanpain eta cointreau kopak hustuta, baina hori gehiago izan zen istripua, edo deskuidoa, neure erabakia baino. Xabier Mendiguren Elizegi

6 *ezkon bidaia (ETCn **67** agerraldi; orobat **ezkonbidaia** g.er.)* ezkondu ondoren egiten den bidaia.

Bat-batean, bizitzak den-dena ematen ziok, dena jartzen ziok eskueran: ezkontza, urte betez luzatzen den **ezkon-bidaia**, Paris, Londres, Erroma, eta gero Sortaldea, hilabete osoak oasietan eta itsasoan zehar. Xabier Olarra

Pentsatu al duzue **ezkonbidaia** nora egin? Arantxa Iturbe

" **Ezkon-bidaia** bat", halaxe zioen berak, "aski da, aski denez. Joxe Austin Arrieta

Petrusen eskaintza ez da elizan ezkondu eta Wild Coast-en **ezkon-bidaia** egitea. Oskar Arana

Butch Siegfried, edo hobeki esanda George, Claire Lyonsekin ezkondu zen atzo eta Hollywoodera joanen dira **ezkon-bidaian**. Fernando Rey

Ni ere sortaldean ibili nintzela gogoratuko haiz apika: Krisztina eta biok **ezkon-bidaian** joan ginenean. Xabier Olarra

Geroago, jenerala ezkondu egin zen, eta, bere emaztearekin **ezkon-bidaiatik** itzuli zenean, Nini jauregiaren atean zegoen zain. Xabier Olarra

Mr.&Mrs. Jack Cunningham-ek euren **ezkon bidaiaren** lehenengo zatiari ekin diote Albatros VII._Hidrohegazkin bikainean. Lopez de Arana

7 *ezkon bizikidetza*

Beste emazteren bat hartzen badu, ezin izanen dio lehenengoari kendu, ez janaririk, ez arroparik, ezta **ezkon-bizikidetzarik** ere. Elizen arteko biblia

8 *ezkon bizimodu* ezkonduen bizimodua.

Era batera nahiz bestera, umeak horrela alde egin izanak zer esaten zigun Auroraren **ezkon bizimoduaz**? Oskar Arana

Uste du larregikeriak astunak izan daitezkeela, senar-emazteen **ezkon bizimodua** jasanezin eginez. Andres Urrutia

Banantzeak arindu egiten dituela **ezkon bizimoduaren** garratzak. Andres Urrutia

Esposaturik, ez zen batere zoriontsu izan **ezkon-bizimoduan**, eta esamesa zebilen emazteak burua nahastu ziola. Juan Garzia

9 *ezkon bizitza (orobat **ezkonbizitza** g.er.)* iz ezkonduen bizitza.

Horrelaxe laburbiltzen hark gure **ezkon-bizitza** hondora ekarri zuten egitate guztien nondik norakoa! Aingeru Epaltza

Ezkon-bizitza baten porrota zegoen nire erabakiaren atzean, eta ez nuen beste porrot baten ozpina dastatzeko gogorik. Anjel Lertxundi

Ez zen berriro ezkondu, esan berri zuen bezala, **ezkon bizitza** gorroto zuelako. Patxi Zubizarreta

Hain etsigarria ote da **ezkon-bizitza**? Antton Olano

Alaba guztiak ezkonduak zituen, denak ere **ezkon bizitza** gorabeheratsuarekin, baina bakar bat ere ez dibortziatua. Patxi Zubizarreta

Honela zioen iragarpenak:_Lilavati ezkontzen bada, "laburra izango da haren **ezkon-bizitza**". Jon Muñoz

Oraindik ere, zazpi urteko **ezkon bizitzaren** ostean, gustukoa zuen bere burua zeregin xalo hartan irudikatzea. Mirentxu Larrañaga

Hogei urteko **ezkonbizitzaren** ondoren. Juan Garzia

Horrek **ezkon bizitzaren** sendotasuna eta askatasunaren xarma bermatzen zieten aldi berean. Mirentxu Larrañaga

Zerbaitek huts egiten du zure **ezkon bizitzan**. Patxi Zubizarreta

Euren **ezkon bizitzako** lehen hilabeteetan, pasiorik grinatsuena eskaini zion senarrari. Mirentxu Larrañaga

10 *ezkon bufoi* ezkontza batean aritzen den bufoia.

Tishe b'Av-en ondorengo aurreneko Sabathean ospatu ziren ezteiak, eta birjina baten ezkontzan egin ohi diren guztiak egin ziren: bazkaria pobreentzat, palioa sinagogaren aurrean, musikariak, **ezkon bufoia**, bertutezko dantza. Koro Navarro

Reb Zekele **ezkon bufoia** noiz hilko zain zegoen, haren lanbidea hartzeko. Koro Navarro

Emaztegaia alarguna zelarik, ezkontza ospakizunik ez zen egin, ez zen ez musikaririk, ez **ezkon bufoirik** izan, emaztegaia ez zen usadiozko beloaz estali. Koro Navarro

11 *ezkon egun* *(orobat **ezkontegun** eta **ezkonegun** g.er.)* ezkontza eguna.

Ezkon eguna bera ere finkatuta zegoen, eta halako batean ezkon kontratua atzera bota zuten. Koro Navarro

Andrea **ezkon egunean** bezainbeste maite zuen, seme-alabak etengabeko poz-iturri zituen eta herrian den-denek estimatzen zuten. Martin Anso

Ederra gauza neuri gertatu zaidana neure **ezkon egunean**! Lopez de Arana

Azkue kantu-biltzaileak Oletako Engrazi Lazkanoren ahotik ikasi zuen *Bart amarretan dontzella nintzan* hitzekin hasten den kantua, zeina baita **ezkon-eguneko** alargunaren kantagai zabalduaren aldaera bat, dakitenen arabera. Iñaki Segurola

Jantzi zuen **ezkontegunean** elizan erakutsi zuen soineko zuria, lepoan ipini zuen ezkondu bezperan senarrak oparitutako idunekoa, harribitxi berde-kolorekoez osatua. Felipe Juaristi

Nobioa ez omen zitzaion **ezkontegunean** aldare aurrean azaldu. Karlos Linazasoro

12 *ezkon eraztun* *(orobat **ezkoneraztun** g.er.)*

Ezkon eraztuna kendu eta mahai gainean utzi zuen. Bernardo Atxaga

Nik gogoan dudala aitak alde egin aurretik nola utzi zuen **ezkon eraztuna** erortzen arrebaren arrain-ontzira. Harkaitz Cano

Oharkabean bezala, ezker eskuko eriak eskuineko hatz nagira eraman nituen, **ezkon-eraztuna** ukitzeraino. Aingeru Epaltza

Plastikozko poltsa batean sartu ditu sakelakoa, bion diru apurra, **ezkon eraztuna**, *Caja de Ahorros de Cuenca y Ciudad Real*en kreditu txartela eta bertze zeren bat gehiago. Aingeru Epaltza

Fusilatu ondoren eskumuturreko urrezko erlojua eta behatzeko **ezkoneraztunak** errazago kentzeko moztuko zizkioten eskuak. Mikel Hernandez Abaitua

13 *ezkon eresi* ezkontzetako eresia.

Eta gora goaz, bai, haziak, **ezkon eresien** laguntzaz, biok, oi, biok, eta kremailera alu hau. Karlos Linazasoro

14 *ezkon erraz* erraz ezkontzen dena.

Etika eta ekonomia dela, etika eta irabazi xedea dela, edota etika eta enpresa dela, guztiek ere ez dirudite, ez, oso **ezkon errazak**. Iñaki Heras

15 *ezkon eskaintza* ezkontzeko eskaintza.

Ez du hainbeste **ezkon-eskaintzarik** ere aukeran. Mirentxu Larrañaga

16 *ezkon estekadura* ezkontze lotura.

Ezin daitezke inola ere behartu kultu horietako gizakiak erlijioarena baino **ezkon estekadura** lazgarriago batez. Andres Urrutia

17 *ezkon etxe* *(orobat **ezkontetxe**)* ezkonduen etxea.

Urtetik urtera pazientzia erreago agertu ohi zen eta itzulingururik gabe kexatu zitzaion, halako moldez non, **ezkon etxea** utzirik, semeenera jo izan baitzuen, ikustaldiak itxuratuz, baina zinez ihesaldiak eginez. Patxi Zubizarreta

Banuen haren ezagutza; gure **ezkontetxean** ez zen inoiz haren faltarik. Aingeru Epaltza

Ezkontetxera bihurtu zenean, amaginarreba gaizki esaka, lepotik heldu eta burua hormaren kontra jotzen hasi zitzaion, haurdun nork daki zeinek eginik izango zela eta eritegian berariaz haurra galdu egin zuela. Gotzon Garate

17a *ezkon ezin* ik **ezkonezin**.

18 *ezkon despedida* ezkontzera doanaren despedida.

"Esaten nizun bezala, dena Manoloren **ezkon-despedida** ospatu genuen taberna hartan hasi zen. Juan Martin Elexpuru

19 *ezkon drama*

Baina, etsipenak, alde batera, eta **ezkon drama** hura zabaltzean arerioek sor zitzaketen irainek, bestera, badaezpada ere sainduaren atera deitzera derrigortu zuten. Patxi Zubizarreta

20 *ezkon gau* *(orobat **ezkongau** g.er.)* ezkontze gaua.

Ezkon-gauean, 31 urterekin, hantxe bukatu inpotentzia, eta ez zitzaion sekula berriz agertu. Jon Muñoz

Eta gurasoek herri-arduradunen aurrean zabalduko dute maindirea **ezkon-gaueko** odol-aztarnekin. Elizen arteko biblia

Ezkonberriei ere, **ezkon-gauerako** hurrak ematen zitzaizkien eskukada bana. Pello Zabala

Indarrak gorde behar dituzu **ezkon gauerako**! Javi Cillero

Halle aukeratu zuen, eta soinekoa josi zuen ezkutuan **ezkon gauerako**. Anton Garikano

Lehen **ezkongauean** bertan eman zidan bere fantasien berri, eta bere aldetik segurtatu zidan ez zituela nireak sekula oztopatuko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

21 *ezkon gela* ik **ezkongela**.

22 *ezkon gonbidapen* ezkontza gonbidapena.

Esan gabe doa gutuna kiribildu eta kutxan gorde zuela, afixa baten aldamenean eta leku eta posizio berean zazpi urte zeramatzan **ezkon-gonbidapen** batetik hurbil. Jose Morales

23 *ezkon guraso*

Pazko asteko oporretan, usadioa zen beren **ezkon gurasoekin** bizi ziren gizon gazteak inguruko hirietara bidaian joatea. Koro Navarro

24 *ezkon itun* ezkontza ituna.

Ezkon-itunak berarekin zekarren ondoriotzat neukan Teresa nire arropa zikinarekin ikustea ere. Anjel Lertxundi

Oi, egintza bat, **ezkon-itunaren** gorputzetik duena iraizten arima bera, erlijio eztia bihurturik hitzezko lore-joko. Juan Garzia

25 *ezkon izen* ezkontza izena.

Zorayda Arraras, **ezkon-izenez** Cormenzana anderea (ez hain aspaldidanik), zazpi urrats egina zen ohetik ispilu aurreraino, eta beste bi gehiago egin behar izan zituen CD-jotzekoan aspaldian maiztxo entzuten zuen kantua berriro jartzeko. Iñaki Segurola

26 *ezkon harreman* ezkontza harremana.

Hartzazue denok ezkontza errespetu handiz, eta izan garbi **ezkon-harremanetan**, epaitu egingo baititu Jainkoak lizunak eta adulteriogileak. Elizen arteko biblia

Eta ez zuten **ezkon-harremanik** izan, Mariak semea izan zuen arte, eta Josek Jesus izena ipini zion. Elizen arteko biblia

Erromatar legionarioei, zerbitzu aktiboan zeudenean legez ezkontzea debekatuta izan arren, praktikan baimendu egiten zitzaien ohaideekin **ezkon-harreman** iraunkorrak izatea eta familiak haztea. Iñaki Mendiguren

Ezkon-harreman gatazkatsuak eta bestelako harreman ilun eta suntsikorrak izan dituzten anai-arrebak dira. Berria - Kultura

27 *ezkon hitz* *(orobat **ezkontitz**)* ezkontza hitza.

Eta zer egunetan eman genion **ezkon-hitza** elkarri? Antton Olano

Ezkon-hitza emateak sekulako ezustekoa izan beharko liken neskatxa gazte batentzat, ezusteko atsegina edo ezatsegina, nork eskatzen dion. Antton Olano

Min handia eman dit **ezkon-hitza** hautsi zenuela jakiteak. Antton Olano

Baina betiko **ezkon-hitza** eskaintzeak ez zaukak erromantikorik deus. Antton Olano

Egutxik ez zion berehala eman baiezkoa **ezkon-hitzari**, baina ez zion ezezko biribilik ere eman. Ibon Uribarri

28 *ezkon hitzarmen* ezkontza hitzarmena.

Zure ondotik berriro pasatu eta amodio-garaian zeundela ikusi nuen. Zure gorputz biluzia estali eta zutaz arduratu nintzen; **ezkon-hitzarmena** egin nuen zurekin eta nirea izan zinen. Elizen arteko biblia

Alter Vishkowerrek behin-behineko kontratu bat idatzarazi zuen **ezkon hitzarmenerako**, Ansheli dote handiagoa, opari gehiago, eta Avigdorri eskaini ziona baino mantenualdi luzeagoa aginduz. Koro Navarro

28a *ezkon hots* *(corpusean **ezkontots** soilik)*

Herri hartan bizi zen neska bat beti **ezkontotsetan** zegoena baina behin ere ezkontzen ez zena. Pako Aristi

29 *ezkon jai* ezkontza jaia.

Azkena, laugarrena, Sylvia Treudl idazle austriarraren **ezkon jaia** izan zen. Edorta Jimenez

Sylviaren **ezkon jaia** hasi zenerako aspaldi zegoen mahai azpian lo trenekoa ez den idazle errusiar bat. Edorta Jimenez

Esan bezala, austriar idazle Sylvia Treudlek bere **ezkon jaia** ospatu nahi zuen. Edorta Jimenez

30 *ezkon jantzi* ezkontza jantzia.

Jessicaren **ezkon-jantzi** zuria. Itxaro Borda

31 *ezkon konpromiso* ezkontza konpromisoa.

Hadass **ezkon konpromiso** bat izana zen dagoeneko. Koro Navarro

32 *ezkon kontratu* ezkontza kontratua.

Beste **ezkon kontratu** batean sartu nahi naute orain, baina neskak ez nau batere erakartzen. Koro Navarro

Ezkon eguna bera ere finkatuta zegoen, eta halako batean **ezkon kontratua** atzera bota zuten. Koro Navarro

33 *ezkon lagun* ezkontza laguna.

Horra, nik hainbeste nahi nuena neure begiz ikusten dut orain, desiratzen nuena neurea dut jadanik, lurrean bertan elkartu bainaiz zuekin, zeruko nire **ezkon-lagunaren** irudi bizi zaretenokin. Askoren artean

34 *ezkon laguntzaile* ezkontza batean laguntzen duen pertsona.

Ezkon laguntzaileek jokamolde egokiaren berri eman zioten bikoteari, eta "emankorrak izan eta ugal zitezen" eskatu zieten. Koro Navarro

35 *ezkon laido* ezkontza laidoa, ezkontza iraina.

Badut susmoa ez ote den haren senar hantustetsu hori; hala izatea nahi nuke: zeren, **ezkon laidoa** desiraren akuilu izateaz bertzalde, ziur bainintzateke ezen nire eder hori niri izkiriatzera makurtua den unetik beretik ez dudala senarraz zertan gehiago beldurturik, emaztea jadanik senarra engainatzeko premian bailegoke. Jon Muñoz

36 *ezkon lege* ezkontza legea.

Ezkon-legeak ezagutu zituztenean, eta seme-alabak eurengandik sortuta ikusi zituztenean, giza enda orduantxe hasi zen lehenengoz gizakortzen. Xabier Amuriza

Horrek esan nahi du Krapotkinekin izandakoaren ondoren ez zuela bere -lege liburuetan esaten zaion bezala- bere **ezkon-legea** gehiago bete nahi izan. Matías Múgica

37 *ezkon lotura* ezkontzaren bidezko lotura.

Esan ohi da, dibortzioaren alde, ezkontzan gozorik ezabatzen dela, horren hautsezintasuna adierazten denean; **ezkon lotura** gehiegi estutzen bada, argaldu egiten dela. Andres Urrutia

Paduako fraile gaztea, **ezkon-loturen** arduradun gelditu izan da zenbait tokitan. Pello Zabala

38 *ezkon maitasun* ezkonduen arteko maitasuna.

Ezagutzen duzu Tourvel lehendakariaren emaztea, haren jaidura, haren **ezkon maitasuna**, haren oinarrizko arau zorrotzak. Jon Muñoz

Senarraren bi gutun kausitu nituen lehenik, jujamendutako xehetasunen eta **ezkon maitasunezko** hizketen halako nahaspila txegosgaitza, pazientzia handiz osorik irakurri nituenak. Jon Muñoz

Badu zerbait argitsua, indartsua, **ezkon-maitasunezkoa**, orrialde bakoitza girotzen duena: emakume maiteminduaren bihotza, ezin utzizko ideal baten alde azkeneraino borrokatzen dena, Jaunarenganako guztizko leialtasunean. Askoren artean

39 *ezkon mandatu* ezkontza mandatua.

Orain, izeba Augusta ondotik kentzen badiat hamar minutuz, hik Gwendoleni **ezkon-mandatua** egiteko aukera izan dezaan, gaur gauean hirekin Willis's-en afaltzerik izango al dut? Antton Olano

40 *ezkon mistika* ezkontzaren mistika.

Guztiaz baliatzen da Klara Jesu Kristo begiratu, hausnartu, kontenplatu, besarkatu eta, **ezkon-mistikaz**, haren antzeko bihurtzeko. Askoren artean

41 *ezkon nahasle* ezkontzak nahasten dituena.

Ai, piztia intzestu-egile, **ezkon-nahasle** horrek, antzezko sorginkeriaz, saldukeriazko dohainez [...] bere irrits laidotsura zuen erakarri ene erregina itxuraz hain onbidetsuaren gogoa. Juan Garzia

42 *ezkon nahi* ezkondu nahi duean pertsona.

Reb Alter Vishkower eta haren emaztea ez zeuden konforme: ez omen zen egokia **ezkon-nahi** zapuztuak bere emaztegai ohiaren etxea bisitatzea. Koro Navarro

43 *ezkon neba* *(orobat **ezkoneba** g.er.)* ezkon arreba.

Lisari den-dena ahaztu zitzaion, **ezkon-neba**, beldurrak, zertara joana zen gela hartara. Karlos Zabala

-Baina -jarraitu zuen Lecœur andreak-, Lisa lodikote horren **ezkon-neba** da. Karlos Zabala

Bere **ezkon-neba** ikusi ez zuelakoa egin zuen hasieran; gero, buruarekin keinu bat eginik agurtu zuen, hitzik esan gabe. Karlos Zabala

Lisa ederrak epaile baten irudira jokatzen zuen, bere **ezkon-nebaren** ibilbide txarraren aurrean. Karlos Zabala

44 *ezkon parada* ezkontzeko parada.

Nire barruko hiztegian, "Mori andereñoaren **ezkon parada"** deitu nion hari. Joxan Elosegi

Izan ere, gure bulegotik iragotzen zenean, **ezkon parada** frenetiko bati ekiten zion Fubukik, gerrikoa bira eta bira erabiliz. Joxan Elosegi

45 *ezkon porrot* ezkontzaren porrota.

Ez nuen, bertzalde, inolako zalantzarik, kristau onaren ikasgaiak gupida lekedazu baten itxuran azaleratuko zitzaizkiola, aita-amen **ezkon-porrotaren** ondorioz zurztasunaren sareetan trabaturiko gure seme errukarri eta errugabearenganako. Aingeru Epaltza

46 *ezkon ordu* ezkontza ordua.

Horiek izan ziren **ezkon orduko** itunak; gizonak, bere garaian itunok onarturik ere, gero, ia gauero, andrearen etzauntza bortxatzen saiatua zen. Juan Garzia

47 *ezkon ohe* ezkontideentzako ohea.

Utz beza senar-berriak ezkongela eta emazte-berriak **ezkon-ohea**. Elizen arteko biblia

Beste hori, ordea, atera dadila jauregitik, nire **ezkon-ohea** profana ez dezan. Askoren artean

Bion **ezkon ohean** eserita, arnasa entzuteko bezain gertu egonik, elkar ezagutu aurretik baino urrunago zeukan orain Lou. Koro Navarro

Goizeko ordu bietan, gizon unatu eta maiz mozkor batek joko din hire ondora **ezkon-ohean** amiltzeko, eta goizeko seietan utziko din berriro ohea, hitzik ere esan gabe. Joxan Elosegi

Aitaren **ezkon-ohera** igo baitzinen, / nire ohea lohituz. Jose Antonio Mujika

Han zuen Claudek **ezkon-ohe** handia, eta han egiten zien harrera goxoa bere mutikoei. Karlos Zabala

Ezkon ohe arrunt bat baino bi bider handiagoa da. Ramon Etxezarreta

48 ***ezkon opari*** ezkontza oparia.

Hirurehun metro karratuko duplex argitsua, Gortariren gurasoen **ezkon oparia** .Orduan dantza hasi zen, eta **ezkon oparien** berri ematea, usadioaren arabera dena. Patxi Iturritegi

Ezkon opari a . Karlos Linazasoro

49 ***ezkon palio*** ezkontza palioa.

Egun batean Peshe **ezkon palioaren** azpian zegoen, eta biharamunean dendan zen ostera, bere esku koipetsuekin alkaterna saltzen. Koro Navarro

50 *ezkon sari* ik **ezkonsari**.

51 ***ezkon soineko*** ezkontza soinekoa.

Sekula ez ninan ezteirik ikusi, baina ikusia neukanan Garner andrearen **ezkon-soinekoa** armairuan, eta entzuna nionan zer egin ohi zen. Anton Garikano

Ahantz ote daiteke neskatxa bere bitxiaz, andregaia bere **ezkon-soinekoaz** ? Elizen arteko biblia

Magnavigàia (izeba Abigail, zeina **ezkon-soinekoz** mandeme zuri baten gainean zaldizka sartu baitzen Saluzzo-n, Carmagnola-tik Po izoztuan gora egin ondoren). Juan Garzia

Ezkon-soinekoz jantzia abesten ari zela ikusi zion Gabrielek, une batez, aurpegiera begipetsu hura. Irene Aldasoro

52 ***ezkon solas*** ezkontza solasa.

Tomas **ezkon-solasetan** hasia zen karrika bereko bertze ofiziale batzuekin. Aingeru Epaltza

53 ***ezkon testigu*** ezkontza bateko lekukoa.

Anaiak, ni hautatua ninduen **ezkon-testigu** . Daniel Landart

54 ***ezkon tratu*** ezkontza tratua.

Ezkon-tratua .

Ezkon tratuetan dabiltza? Koro Navarro

55 ***ezkon txango*** ezkon bidaia.

Ezkon-txango batean denetik egin beharra baitago, egin beharra dagoenez. Joxe Austin Arrieta

56 ***ezkon urte***** *(orobat* ***ezkonturte****)* ezkontza urtea.

Haren lehen **ezkon urtean** , etxetik alde egin, eta Bulak-eko10 langile baten etxean bizitzen topatu zuten. Patxi Zubizarreta

Hori da **ezkonturte** askoren emaitza: besteak atsegin duena norberari ere laket gertatzea. Pako Aristi

Kontua da **ezkon urte** honetan salerosketa bolumenaren marka berria izan dela eta likidotasun maila egokia erakutsi duela gure burtsak, urtean 490.000 milioi euroren akzioak mugitzeraino. Berria - Ekonomia

57 ***ezkon urteurren*** ezkontza urteurrena.

Gurasoei hogeita hamargarren **ezkon-urteurrenean** oparitutako zilarrezko platerak eta azpilak janariz bete eta egongelara eraman zituzten. Harkaitz Cano

58 ***ezkon xuri *****

Bidazti **ezkon xuriari** egindako erregu nolabaiteko bat. Anjel Lertxundi

Lotsa pixka bat baduzu, bidazti **ezkon xuriaren** algarak entzun ditzakezu ibaian behera. Anjel Lertxundi

"Zatoz, ekatzu eskua, neuk eramango zaitut", esaten ari bazaizu ere, onar iezaiozu ironia, ironiaren iturri ere baden **ezkon xuriari** . Anjel Lertxundi

Ibilian gabiltzanon itzal eta bidazti; olerkariak noranahiko egarriz kantatu zintuen gogamenaren ene **ezkon xuri** nirea. Anjel Lertxundi

59 ***ezkon zin*** ezkontza zina.

Egintza bat, hara, begiramenaren musu xaloa duena lardasten; hipokrita agerrarazten bertutea; arrosa kentzen maitasun hobengabearen bekoki garbitik, eta pusla bat uzten hantxe; **ezkon-zinak** bilakarazten dadolarien juramentuak bezain faltsu. Juan Garzia

---

ezkonahizpa *(ETCn **67** agerraldi; orobat* ***ezkon ahizpa****)* emakumezko batentzat, koinata.

Swan andrea, Matson andrearen **ezkonahizpa** bisitaria, hura baino gazteagoa, eta bitxi-loredun kapelak eta gakorratzez jositako lepoko parpailadunak janztera emana, eta behin-behineko ibiltariaren jakin-min bizi erabatekoa azaldu ohi zuena anfitrioiaren ezagun edota jarduera ororekiko. Mirentxu Larrañaga

Lurjabeak etxean zituela alaba Adelaida Sofronovna eta haren hiru **ezkon-ahizpak** : Maria Gavrilovna, Aleksandra Gavrilovna eta Adelgeida Gavrilovna. Jose Morales

Emanez ez nintzen emailea, hartzailea baizik: lehen argazki-makina neska oso gazte bati, larruzko beroki bat nire **ezkon-ahizpari** , Magritteren erreprodukzioak zituen egutegi handi bat, apartamendu berri batera aldatu behar zuen lagun bati. Joxan Elosegi

---

ezkonanaia *(corpusean* ***ezkontanaia*** *soilik)* *iz* koinatua.

Ez dio egiari aurre egin nahi: seguru asko **ezkontanaia** ez da agertuko. Gotzon Garate

---

ezkonarazi, ezkonaraz, eskonarazten *(orobat* ***ezkontarazi****)* du *ad* ezkontzera behartu.

Hamaika urte dituelarik bere gurasoek, minez beterik, Putti Lal izeneko gizon kaxkar batekin **ezkonarazi** dute. Pablo Sastre

Joiadak bi emazterekin **ezkonarazi** zuen, eta hauek seme-alabak eman zizkioten. Elizen arteko biblia

Hatche, Abdi aghak bere ilobarekin **ezkonarazi** nahi zuena. Pablo Sastre

Baldin eta Mona **ezkonarazterik** bagenu! Mirentxu Larrañaga

-Erregearen mende bizi izandako garaietan ba omen zen usadio bat printzesak **ezkonarazteko** . Felipe Juaristi

Hainbat aukera saiatu ondoren, panpina **ezkonaraztea** erabakitzen du azkenean. Oskar Arana

Gortean atxiki nahi izan zuten, haren aholkuen baliatzeko eta Fernando Valdések eskaini zion lan bat Inkisizioaren Kontseilu Goienean, baina Nafarra itzuri zitzaion Nafarroako zenbait iloba umezurtzen **ezkonaraztera** joan behar zuelako aitzakiarekin. Piarres Xarriton

Izeba, nirea, hamasei urterekin haurdun utzi eta **ezkonarazitako** horietakoa. Arantxa Iturbe

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ezkontarazi nahi (3); **ezkontarazi zuten** (4); **zela ezkontarazi** (3); **zela ezkontarazi zuten** (3)

---

ezkonarreba *iz* gizonezko batentzat, koinata.

Hegazti saltzaileak **ezkonarreba** bat eta iloba bat beste ahaiderik ez zuen. Karlos Zabala

Espiritu samur hura liluretan bizi zen zeharo, eta anaia eta **ezkonarreba** mintzeko beldurrez ez zen lehenago hasi bazkari-afariak kanpoan egiten. Karlos Zabala

---

ezkonaurreko ik **ezkon 3**.

---

ezkonberri *(orobat **ezkon berri** g.er. eta **ezkondu berri** g.er.)* **1** *iz pl* duela oso denbora gutxi ezkondu dena.

Mota guztietako tartak, ezkontzakoak, bataiokoak, bi pisukoak eta bost pisukoak, goian **ezkonberriak** zituztenak eta ez zituztenak, bihotz formakoak eta gaztelu formakoak. Luze gabe, **ezkonberriak** eztei gelan elkartu ziren eta, Zobeida larrugorritan geratu zelarik, Ala Al-Dinek ederra iritzi zion, zilarra bezain garbia, eta palmondo gazte baten enborra bezain sendo eta lerdena. Fernando Rey

Gela hori izango zen **ezkonberrien** logela, bulegoa eta jantokia. Etxe argiak ere badira: **ezkonberrien** etxeak, kasurako. Josu Zabaleta

Ezkon berrieri eta ezkontzekoak direneri gure goresmenak eta zorionak. Herria

Ezkonberriei, "hurrak, hurrak!" oihukatzeko ohitura omen zen orain gutxi arte, eta andregaiak hurrak banatzen omen zituen ezkontzako hirugarren egunean. Patziku Perurena

Zer, aita-semeek ez al dute akaso **ezkonberriek** adina luzitzen? Harkaitz Cano

Ez baikenituen gogaitu behar **ezkonberri** gazteak. Juan Kruz Igerabide

Albo batera uzten ditu **ezkonberri** gazteegi eta mutiria eta haren Milord ingeles gatibua, eta Teresa heldu batekin saiatzen da. Oskar Arana

Baina ez zen han bukatu nire alfonbra hegalariaren kontua, orduan dena desegiten ari zelako, eta izarrartetik lurrera amiltzen ari ziren **ezkonberri** ttikiak, ehiztari batek tiroa jotako txori zaurituak bezala. Fernando Rey

Nire pentsamenduari begira ikusten baitut zeru izartu osoa senar-emazteen izar multzoez osatua zegoela, hau da, izarren ordez igeltsozko **ezkonberri** bikotetxoak zeudela zodiako guztian barrena. Fernando Rey

Beraz, nik ere, **ezkonberri** garaiaz ari naizelarik, neure egin dezaket Azkoitiko Elortza hark ea non bizi zen galdetzen ziotenean erantzuten zuena:[...]. Ramon Saizarbitoria

Gora **ezkonberriak**! Urtzi Urrutikoetxea

2 *izond*

Aurrera egin aurretik, jaun agurgarri hori, jakin beharra daukazu alemaniarra **ezkonberria** zela. Jose Morales

Osaba **ezkonberria** zen, ni neskatila bat artean, baina ongi gogoratzen naiz zein azkar erori zen itsasoaren hatzaparretan. Migel Angel Mintegi

Bikote **ezkonberrien** begiradak urtu egingo lituzketen uharte batzuen edertasunaren gainetik pasa gara, azafatak aduanan aurkezteko papera eman digun unean. Pako Aristi

Lenitsinen emaztearen ondotik, inudeak besoetan ekarri zuen lehensemea, senar-emazte **ezkonberrien** maitasun samurraren fruitua. Jose Morales

Gure gurasoek emazte **ezkonberriari** urrezko belarritakoak oparitu zizkioten. Juan Kruz Igerabide

Jainkoaren erregetzarekin, kriseiluak hartu eta senar **ezkonberriari** bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Elizen arteko biblia

Gizon **ezkonberria** ez dago soldaduska egitera behartua, ezta beste edozein zerbitzu publiko egitera ere. Elizen arteko biblia

Barre egiten zuen, gazte **ezkonberriek** bezala, abentura horren kontura. Felipe Juaristi

Artean lagun **ezkonberriaren** egoera nobedadetsu zitzaien, eta Perikok onartu egin zuen lagunek, etxekoandre kuttun berria denek azkarrago ezagutu eta konfiantzazko bihur zezaten, bota zioten proposamena: lanean ari ziren bitartean, Isidorak presta zezala denentzat afaria. Pako Aristi

Bikote **ezkonberri** polita osatzen zuten auzoen begietan, Bordeletik jinak lanaren kariaz. Xabier Montoia

Orain esan dezaket hori -zoritxarrez izan zela-, orduan, artean **ezkonberri** nintzela, ez bainekien kalterako izango zenik. Ramon Saizarbitoria

3 ***ezkonberritan*** *adlag*

Aspaldiko egunik ederrenak pasa ditu, lasai eta gustura sumatzen baitzuen andrea, ezkongaietan edo **ezkonberritan** bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Arzalluz Berlinen zegoela afiliatu zen EAJn, eta **ezkonberritan** Euskal Herrira itzuli zenean, Astarloa kalean abokatu bulegoa jartzea izan zuen, lanari dagokionez, aurreneko asmoa. Berria - Euskal Herria

Halere, gogoan daukat nola niri, **ezkonberritan**, senarra eta biok ohean sartzen ginenean, bere zakil txiki eta zimurra, bigun-biguna, esku artean hartu eta horrelaxe lokartzea gustatzen zitzaidan. Jasone Osoro

Ezkonberritan bezain zorrotz ikusten dut nik! Itziar Otegi

· Pixkanaka, senideenganako maitasuna nagusitu zaio Trabukori dion gorrotoaren gainetik, azken bizpahiru hilabeteetako bertsorik gehienak haurtzaroaz, gurasoez, txikitako familia-giroaz, bere emazteaz eta **ezkonberritako** poz-nekeez onduak baititu. Anjel Lertxundi

Azken parteko bertsorik gehienak haurtzaroaz, gurasoez, txikitako familia-giroaz, bere emazteaz eta **ezkonberritako** bizitzaz baitira. Anjel Lertxundi

---

ezkonbidaia ik **ezkon 6**.

---

ezkonbide *iz* ezkontzeko bidea.

Ez uste, baina, **ezkonbidean** daudela edo. Gotzon Garate

Alabak ezkondu antzean edo **ezkonbidean** eta lanean edukita, bera lako andre zahar batek ez zuen kezkatzeko arrazoirik. Xabier Montoia

Ezkondu aurretik maitemindu, elkar ezagutu, **ezkonbidean** jarri eta dirua irabazi behar zela. Xabier Aranburu

---

ezkonbizitza ik **ezkon 9**.

---

ezkondei *iz pl* ezkontza aldarrikapena.

-Zuen zerbitzuan naukazue: **ezkondeiak** egiteko epea bukatzen denean ezkonduko zaituztet. Koldo Biguri

-Eta dohakabe bat hiltzorian badago eta emakume batekin ezkondu nahi badu, beharrezkoa al da lehendabizi **ezkondeiak** egitea eta arauzko epea bukatu arte zain egotea? Koldo Biguri

Arraroa da Peter ez sartzea elizan, **ezkondeiak** debekatzeko. Julen Gabiria

---

ezkondu **1** da *ad* ezkontzaren bidez elkartu.

Frisco-ra itzuli eta **ezkondu** egin nintzen. Lopez de Arana

Aita, nire bizitzan ezagutu dudan aitarik onena, hogeita hamasei urte zituen arte ez zen **ezkondu**; amak hogeita bost zituen orduan. Josu Zabaleta

Ba, **ezkondu**, izan seme-alabak, familia-guraso zintzoa izango zara. Josu Zabaleta

Bill eta Linda **ezkondu** zirenean, Jerry izan zen aita jauna. Koro Navarro

-Eta zu, osaba Kamil, noiz **ezkonduko** zara zu? Patxi Zubizarreta

Saulen alaba Mikalekin **ezkondu** David. Elizen arteko biblia

Nahamen arrebarekin **ezkondu** zen Hodias. Elizen arteko biblia

Hirmengarda enperatriza hil eta gero, zeinekin hiru haur izan baitzituen, Judithekin **ezkondu** zen, eta seme bat izan zuen harekin. Iñaki Iñurrieta

Ximurrarekin **ezkondu**, etxekoandretu eta amatu zenez geroztik biribiltzera emandako gorputz eta begitarte horietan deus guti gelditzen zen hogei urte bete gabean ezagutu nuen neska mehakil eta bisai-hezurtsutik. Aingeru Epaltza

Amarekin **ezkondu** zenean ez zitzaidan askorik gustatzen, baina apurka-apurka aldatu egin zait haren gaineko iritzia. Oskar Arana

Alargun geratu ondoren **ezkondu** zen zure amarekin. Arantxa Iturbe

Gelatxo 25 urte zituela **ezkondu** zen Mariarekin. Pako Aristi

-Tontoa ez bahaiz, harekin **ezkonduko** haiz hi -erantzuten zion Tellagorrik. Koro Navarro

Horra, bada: neure ahaide honekin **ezkondu** naiz, ez grina txarra asetzeko, zuzen jokatzeko asmoz baizik. Elizen arteko biblia

Nahiago nuke benetako gizon batekin **ezkondu** izan banintz. Lopez de Arana

Ezkondu egingo naiz Hannarekin. Joxe Austin Arrieta

Orain non ote dagoen galdetu diot neure buruari, Osakan jarraitzen ote duen ontzitegietan lanean, **ezkondu** ote zen azkenean bere andregaiarekin. Bernardo Atxaga

Bi anaia elkarrekin bizi eta bietako bat semerik gabe hiltzen bada, alarguntsa ez da beste senitarteko gizon batekin **ezkonduko**; koinatua **ezkonduko** da berarekin, koinatuari dagokion eginbeharra betez. Elizen arteko biblia

Biak **ezkondu** zaizkio bateratsu, eta bakarrik utzi dute Préchacq-en. Txillardegi

Bakarrik bizi naiz, umeak gazterik **ezkondu** zitzaizkidalako denak. Pako Aristi

Hemeretzi urterekin **ezkondu** zen aurrenekoz, eta ezkontza zoritxarreko hark bultzatu zuen alkoholera. Koro Navarro

Bere izebetarik bat, Parisko handiki baten etxerat **ezkondu** behar zuela-eta, Parisen egon baitzen eta Parisko handitasunarekin liluraturik itzuli baitzen. Joan Mari Irigoien

Aizarnazabalen jaio nintzen ni, Urola bailarako herririk gordeenean, eta gazte samarrik Tolosara **ezkondu**. Juan Luis Zabala

Claus nahiko behartsua zen eta askok zioten Sunny-rekin diruagatik bakarrik **ezkondu** zela. Gotzon Garate

Ni, zoritxarrez, Floraren etxera **ezkondu** nintzen. Ramon Saizarbitoria

Eta zergatik ez da bera hona ezkontzen, hi hara **ezkondu** beharrean? Joan Mari Irigoien

Horietarik bat **ezkondu** zen Ondarrola Axinera, beste bat Azkarate Ferranddoinera, Ana Josefa aldiz etxera Eiheralarreko Arrosagaray-ekin eta, alargundu ondoan, Gortari-rekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haren ama haurgintza minetatik bizirik irten ezinik hil zelarik, aita bigarrenez **ezkondu** baitzen, 1920an. Edorta Jimenez

Laster **ezkonduko** zitzaion Jessica ahizpa ez bezala, gorputz eta aurpegieraz arras itsusia zen. Itxaro Borda

Maitemindu zen teologoa, seme bat egin zion neska gazteari eta ezkutuan **ezkondu** ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orain ez haiz, bada, esaten hasiko **ezkondu** egin nahi dunala, eta elizaz **ezkondu** ere? Anjel Lertxundi

-Zergatik ez zinen berriz **ezkondu**? Jon Muñoz

Eta azkenean penaltiz **ezkondu** zineten, ezta? Joan Mari Irigoien

Bizitzak aurrera jarraitu zuen -armadan bi urte, lana, **ezkondu**, familia baten ardura, geroz eta diru gehiago irabazi beharra, eta geure kasa aurrera egiteko potrorik ez daukagunean itotzen gaituen simaur hori guztia-, baina ez nuen sekula galdu liburuetarako interesa. Oskar Arana

Neska horrekin **ezkondu** aurretik, urtebetez elkarrekin bizi izan ginen, oso pozik, baina **ezkondu** bezain laster, gauza onik ez. Lopez de Arana

Ezkondu aurretik emakumea gutxietsia da. Gotzon Garate

Harry eta Bette aski sarri oheratzen ziren elkarrekin **ezkondu** osteko lehenbiziko urteetan. Oskar Arana

Ez zegoen **ezkondu** ondorengo lehen gauean elkarrekin oheratzerik, ez eta hurrengo bietan ere, Elizaren baimena erosi gabe. Iñaki Iñurrieta

Ezkondu zenetik senarra emaztearen etxeko dirua bereganatzen saiatu zen. Gotzon Garate

Zertarako **ezkondu** behar zuen hark? Koro Navarro

Marzela oso neska ederra omen zen, baina inola ere **ezkondu** nahi ez zuenez, artzain gisa bizitzea erabaki zuen. Patxi Ezkiaga

Nire **ezkondu** nahi eza printzipio-kontua dela behin baino gehiagotan esana nion. Joxe Austin Arrieta

Batasunean jaiotzen diren 100 haurretik 27,2 **ezkondu** gabeko amengandik jaiotzen dira. Luis Elberdin

•

Hala ere, **ezkontzen** bazara, ez duzu bekaturik egiten; neskatxak ere, **ezkontzen** bada, ez du bekaturik egiten. Elizen arteko biblia

Gizon batek emaztea zapuztu badu, eta emaztea, apartatu ondoren, beste batekin **ezkontzen** bada, gizon hura ezin izango da berriro emazteagana itzuli. Elizen arteko biblia

Norbait koinatarekin **ezkontzen** bada, nazkagarrikeria egiten du; anaia desohoratu duenez gero, ez dute ondorengorik izango. Elizen arteko biblia

Ezkondu nintzenean Jainkoaren aurrean zin egin nuen onerako eta txarrerako **ezkontzen** nintzela. Jasone Osoro

Lege zaharren arabera, bakoitzak **ezkontzeko** eta seme-alabak izateko duen gaitasun naturala ezin zen kendu. Iñaki Iñurrieta

Hannak ere ez baitzuen **ezkontzeko** asmorik. Joxe Austin Arrieta

Egia esan, nik ez zioat deus erromantikorik ikusten **ezkontzeko** eskea egiteari. Antton Olano

Hamidak emana zuen **ezkontzeko** hitza eta, nahigabean aiene bat atera zitzaiolarik, Aluanek galdegin zion: [...] Baina **ezkontzen** direnek arazo handiagoak izango dituzte beren bizitzan, eta nik ez nuke nahi horrelakorik zuentzat. Patxi Zubizarreta

Antioko bere adiskideekin jauretxe hartara joan zen, jainkosarekin **ezkontzeko** aitzakiaz, horrela, ezkon-saritzat hango aberastasunak hartuko zituelakoan. Elizen arteko biblia

Ni inoiz **ezkontzen** banaiz, ezkonduta nagoela ahazteko ahalegina egingo diat. Antton Olano

Ez gituk lur baten jabe izaiten ahal, ez gituk guhauren artean baizik **ezkontzen** ahal, ez gituk elizan bertze fededunekin nahasten ahal. Michel Oronoz

Eta zergatik ez da bera hona **ezkontzen**, hi hara **ezkondu** beharrean? Joan Mari Irigoien

2 du *ad* ik **ezkonarazi**.

Ezkondu egingo zaitugu; ez al da egia, Ivan Grigorievitx, **ezkondu** egingo dugula? Jose Morales

-Bai, **ezkonduko** dugu, **ezkonduko** dugu -lagundu zion ganberaburuak-. Jose Morales

Geratzen ziren bietatik, Andreak hogeita hamarren bat urteko beltz bati heldu dio, jaseko eta are dotorea, [...] baina itxura badaezpadako samarrekoa, eta haiek ere **ezkondu** ditut, nahiz artean ere arnasa larri eduki aurreko lasterketaz. Juan Garzia

Bere lehen-seme Er, Tamar izeneko emakume batekin **ezkondu** zuen Judak. Elizen arteko biblia

- **Ezkon gaitza** berorrek! Juan Garzia

- **Ezkondu** egin nahi naute. Koro Navarro

"Beharbada aitak emakume honekin **ezkondu** nahi ninduen" egin zuen bere baitan. Patxi Zubizarreta

3 (era burutua izenondo gisa)

Ikusi nuen andre **ezkondu** hori, bertutez betea; ikusi nuen eta aitortzen dut jantzi sekularraren azpian Kristo Jaunari sagaraturiko arima zela. Askoren artean

Norbait emakume **ezkondu** batekin oheratua harrapatzen badute, biak hilko dituzte, gizona eta emakumea. Elizen arteko biblia

Guztiz pozgarria da pentsatzea emakume gazte bat, emakume gazte **ezkondu** bat, garbi eta orbainik gabe bizi daitekeela halako giro batean. Lopez de Arana

Tira, zer sentitzen da, ene dama **ezkondu** zaharra? Mirentxu Larrañaga

4 (era burutua izen gisa)

Zenbat eta **ezkondu** gutxiago izan, leialtasun gutxiago dagoela ezkontzetan; lapur gehiago dagoenean ere, lapurreta gehiago izaten baita. Iñaki Iñurrieta

5 irud/hed

Beharra eta alaitasuna ez bide dira gustura **ezkontzen** ordea. Joxe Azurmendi

Pixkanaka, irakurketa haiekin nire barneko egoera eta liburua **ezkontzen** hasi nintzen, menturaz zein inoren aholkuz egindako irakurketei esker. Anjel Lertxundi

Zientzia aise **ezkontzen** da errealitatearekin, betetzen da eta funtzionatzen du askotan behintzat. Iñaki Segurola

Nekez **ezkontzen** ziren jende zibilizatuari uste zaion jendetasunarekin. Aingeru Epaltza

Maltzurkeria gaizki **ezkontzen** zenez hazpegi onbera haiekin, aski bitxia izan zen nire adiskidearen aurpegiera. Alberto Ladron Arana

Bestelako ikuspegi bat gaineratzen zion -kezkagarria, indarkeriazkoa- osatzen ari nintzen irudiari, eta oso gaizki **ezkontzen** zen hori, itxuraz, aurrean neukan gizon baketsu lasaiarekin. Xabier Olarra

Noziook guztiok, bistan da, nekez **ezkontzen** dira ordura arte "txakur molekular"aren egitura eta funtzionamenduaz genuen ideiarekin. Juan Garzia

Burdinarekin **ezkontzen** delako, latorri malgu bilakaraziz eta horrenbestez "nocens ferrum" delako tasun odolgosea kenduz. Juan Garzia

Harentzat, karaktere bereganatuen ondoretasunak baino ezin zuen -hots, berak egiaztatutzat zeukan teoriak- modu iraunkorrean aldarazi izadia, eta, beraz, hura baino ezin **ezkondu** doktrina marxistarekin. Juan Garzia

Jainkoaren legea eta gizonena ez direla beti aise **ezkontzen**. Aingeru Epaltza

Ezinean, erorialdian edo malenkonian ernetzen dira eskuarki egiarik ederrenak, zinezkoenak eta beltzenak, hots, bizitzearekin nekezenik **ezkontzen** direnak. Iñaki Segurola

Iparra eta hegoa **ezkontzen** ote dira elkarrekin? Pello Zabala

6 *ezkondu gabe* *(orobat **ezkondugabe** g.er.)* ik **ezkongabe**.

Ezkondu gabe hil zen neska. Elizen arteko biblia

Ezkondu gabe bizi, alegia, haiengatik? Jose Antonio Mujika

Xariak zigor bera ezartzen die **ezkondu gabe** sexu harremanak izaten dituztenei, abortatzen dutenei edo bortxatzaileei. Berria - Gaiak

Zure anaia, nik dakidala, **ezkondu gabe** zegoen, ezta? Antton Olano

Ezkondu gabe haurra izan dutenen kopurua igo egin da. Berria - Euskal Herria

Elkarrekin, nahiz **ezkondu gabe**, modu egonkorrean bizi ziren bikoteak ere bazeuden, baina gainerakoak ere, ados egonez gero, batera oheratzen ginen batzuetan inolako arazorik gabe. Rafa Egiguren

Gazte horiek elgar maite-eta erabaki dute elgarrekin bizitzea ezkontzeko baimena ukan arte eta beraz **ezkondu gabe**. Herria

Beldur nintzen, bestalde, Idoia edozein unetan kondoiei buruz eta **ezkondu gabe** larrua jotzeaz hitz egiten hasiko ote zen. Juan Kruz Igerabide

Urte hartan bertan, Laclosek beste eskandalu bat jasan behar izan zuen: Marie-Soulange Duperré ezagutu eta harekin hasi zen harremanetan, handik bi urtera seme bat izan zuten, artean **ezkondu gabe**. Jon Muñoz

Erradikaltasun politikoa inolako absolutismo teorikorekin **ezkondu gabe**. Joxe Azurmendi

Gizon **ezkondu gabea** zen eta diruz ongi hornitua. Gotzon Garate

Berak esanda genekien **ezkondu gabea** zela, eta berak esanda jakin genuen zein neurritaraino zen bere marxismoan koherente. Joxerra Garzia

Gregorio, aszensoreetakoa, **ezkondugabea**. Pablo Sastre

-Horretarako -esan zuen Santxok-, **ezkondu gabea** izan beharko du ezkutariak, eta meza laguntzen jakin beharko da gutxienez. Patxi Ezkiaga

Ezkondu gabeko neska baten haurra da. Gotzon Garate

Ezkondu gabeko amak, ama ez zen emakume gazte hark, gero zure ama izango zenak. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aberats batekin ezkondu (4); **alaba batekin ezkondu** (6); **alabak ezkondu** (4); **alabarekin ezkondu** (12); **aldiz ezkondu** (10); **aldiz ezkondu eta** (5); **amarekin ezkondu** (6); **an ezkondu** (10); **an ezkondu dira** (9); **artean ezkondu** (4); **azkenean ezkondu** (4); **baina ezkondu** (10); **bat ezkondu** (10); **batean ezkondu** (6); **batekin ezkondu** (94); **batekin ezkondu behar** (4); **batekin ezkondu eta** (7); **batekin ezkondu nahi** (5); **batekin ezkondu zela** (7); **batekin ezkondu zen** (40); **berarekin ezkondu** (16); **berean ezkondu** (4); **berehala ezkondu** (7); **berriro ezkondu** (9); **berriz ezkondu** (12); **bertan ezkondu** (5); **bikote ezkondu** (7); **da ezkondu** (4); **davidekin ezkondu** (4); **du ezkondu** (4); **dut ezkondu** (5); **edo ezkondu** (4); **egun hautan ezkondu** (6); **ekin ezkondu** (4); **elizan ezkondu** (11); **elizan ezkondu dira** (6); **elizaz ezkondu** (4); **elkarrekin ezkondu** (6); **emakume batekin ezkondu** (12); **emakume ezkondu** (5); **ere ezkondu** (8); **erreginarekin ezkondu** (6); **erreginarekin ezkondu nahi** (5); **eta berehala ezkondu** (4); **eta ezkondu** (55); **eta ezkondu egin** (12); **eta ezkondu egingo** (6); **eta harekin ezkondu** (14); **etxean ezkondu** (6); **etxean ezkondu dira** (4); **ez ezkondu** (13); **ezkon dadin** (5); **ezkon ez** (4); **ezkondu ahal** (13); **ezkondu ahal izango** (5); **ezkondu ahal izateko** (6); **ezkondu arte** (10); **ezkondu aurreko** (10); **ezkondu aurretik** (47); **ezkondu baino** (18); **ezkondu baino lehen** (14); **ezkondu baitzen** (8); **ezkondu barik** (4); **ezkondu bat** (7); **ezkondu batekin** (7); **ezkondu behar** (49); **ezkondu behar nuen** (4); **ezkondu behar zuela** (6); **ezkondu behar zuen** (4); **ezkondu beharko** (5); **ezkondu beharra** (10); **ezkondu beharrak** (4); **ezkondu beharrik** (4); **ezkondu berri** (7); **ezkondu berriak** (5); **ezkondu berrieri** (7); **ezkondu berrieri eta** (5); **ezkondu da** (30); **ezkondu dadila** (5); **ezkondu dira** (96); **ezkondu dira herriko** (4); **ezkondu dira iragan** (18); **ezkondu dire** (7); **ezkondu edo** (8); **ezkondu egin** (85); **ezkondu egin behar** (12); **ezkondu egin beharko** (4); **ezkondu egin nahi** (12); **ezkondu egin zela** (5); **ezkondu egin zen** (25); **ezkondu egin ziren** (7); **ezkondu egingo** (37); **ezkondu egingo da** (10); **ezkondu egingo gara** (5); **ezkondu egiten** (14); **ezkondu ere** (14); **ezkondu ere egin** (7); **ezkondu eta** (155); **ezkondu eta berehala** (7); **ezkondu eta gero** (19); **ezkondu eta handik** (8); **ezkondu eta hiru** (11); **ezkondu eta seme** (6); **ezkondu ez** (13); **ezkondu gabe** (27); **ezkondu gabeko** (7); **ezkondu ginen** (16); **ezkondu ginenean** (4); **ezkondu izan** (8); **ezkondu izanak** (4); **ezkondu nahi** (97); **ezkondu nahi du** (4); **ezkondu nahi duzu** (4); **ezkondu nahi duzuenok** (5); **ezkondu nahi ez** (7); **ezkondu nahi izan** (13); **ezkondu nahiko** (7); **ezkondu nintzen** (27); **ezkondu nintzenean** (11); **ezkondu ondoren** (13); **ezkondu orduko** (4); **ezkondu ostean** (5); **ezkondu osteko** (4); **ezkondu zaitez** (4); **ezkondu zan** (4); **ezkondu zauku** (9); **ezkondu zauzkigu** (5); **ezkondu zela** (24); **ezkondu zen** (224); **ezkondu zen eta** (14); **ezkondu zenean** (23); **ezkondu zenetik** (7); **ezkondu zirela** (8); **ezkondu ziren** (63); **ezkondu zirenean** (6); **ezkondu zituen** (7); **ezkondu zuen** (6); **gabe ezkondu** (4); **gazte ezkondu** (8); **gero ezkondu** (8); **gizon batekin ezkondu** (4); **gizon ezkondu** (7); **gizonak ezkondu** (4); **gizonarekin ezkondu** (4); **hamar urte ezkondu** (4); **han ezkondu** (5); **harekin ezkondu** (31); **harekin ezkondu zen** (10); **hautan ezkondu** (6); **hautan ezkondu dire** (6); **herriko etxean ezkondu** (5); **hiru aldiz ezkondu** (4); **honekin ezkondu** (6); **horrekin ezkondu** (9); **iragan larunbatean ezkondu** (18); **joanden larunbatean ezkondu** (8); **larunbatean ezkondu** (31); **larunbatean ezkondu da** (9); **larunbatean ezkondu dira** (17); **laster ezkondu** (6); **neska batekin ezkondu** (5); **neskarekin ezkondu** (4); **ni ezkondu** (5); **nirekin ezkondu** (24); **nirekin ezkondu nahi** (15); **noiz ezkondu** (5); **norbaitekin ezkondu** (5); **norekin ezkondu** (9); **nuen ezkondu** (5); **ondoren ezkondu** (4); **rekin ezkondu** (4); **semearekin ezkondu** (4); **urte ezkondu** (7); **urte ezkondu ziren** (5); **urterekin ezkondu** (5); **zen ezkondu** (9); **zergatik ezkondu** (9); **zergatik ezkondu behar** (4); **zorionak ezkondu** (7); **zorionak ezkondu berrieri** (6); **zuen ezkondu** (9)

aldiz ezkondua (4); **batekin ezkondua** (32); **batekin ezkondua zegoen** (4); **batekin ezkondua zen** (4); **dago ezkondua** (5); **emakume batekin ezkondua** (4); **emakume ezkondua** (7); **emakume ezkonduak** (4); **emakume ezkonduek** (4); **eta ezkonduak** (4); **ez dago ezkondua** (5); **ezkondua da** (8); **ezkondua den** (4); **ezkondua egon** (4); **ezkondua eta** (20); **ezkondua eta bi** (5); **ezkondua izan** (5); **ezkondua naiz** (6); **ezkondua zara** (4); **ezkondua zegoen** (12); **ezkondua zela** (6); **ezkondua zen** (29); **ezkonduak direla** (7); **ezkonduak ziren** (6); **gizon ezkondua** (11); **urte ezkonduak** (4); **urte ezkonduak direla** (4)

alabarekin ezkonduko (4); **bat ezkonduko** (5); **batekin ezkonduko** (9); **batekin ezkondurik** (7); **batekin ezkonduta** (13); **berarekin ezkonduko** (9); **dago ezkonduta** (11); **ere ezkonduko** (5); **eta ezkonduko** (7); **eta ezkonduta** (6); **ezkonduko da** (22); **ezkonduko den** (4); **ezkonduko gara** (5); **ezkonduko naiz** (15); **ezkonduko naizela** (5); **ezkonduko nintzateke** (4); **ezkonduko ote** (4); **ezkonduko zara** (10); **ezkonduko zela** (11); **ezkonduko zen** (14); **ezkonduko ziren** (5); **ezkondurik egon** (6); **ezkondurik eta** (4); **ezkondurik ez** (6); **ezkondurik zegoen** (4); **ezkonduta dago** (22); **ezkonduta dago eta** (5); **ezkonduta dagoela** (4); **ezkonduta dagoen** (6); **ezkonduta egon** (23); **ezkonduta egon behar** (4); **ezkonduta egotea** (4); **ezkonduta eta** (8); **ezkonduta ez** (7); **ezkonduta nago** (4); **ezkonduta zegoela** (6); **ezkonduta zegoen** (7); **ezkonduta zeuden** (4); **ezkondutako bikote** (4); **harekin ezkonduko** (8); **homosexual bat ezkonduko** (4); **nirekin ezkonduko** (4); **noiz ezkonduko** (5); **sekula ezkonduko** (4); **semearekin ezkonduko** (4); **urte ezkondurik** (4); **urte ezkonduta** (4); **zurekin ezkonduko** (5)

aise ezkontzen (4); **alabarekin ezkontzeko** (7); **baina ezkontzeko** (5); **batekin ezkontzea** (15); **batekin ezkontzeko** (9); **batekin ezkontzekotan** (4); **batekin ezkontzen** (21); **batekin ezkontzera** (5); **berarekin ezkontzeko** (13); **berarekin ezkontzeko eskatu** (4); **berriro ezkontzeko** (4); **beste batekin ezkontzen** (4); **bikote homosexualak ezkontzea** (6); **bikote homosexualei ezkontzeko** (8); **bikote homosexualek ezkontzeko** (4); **eta ezkontzeko** (10); **eta ezkontzen** (5); **eta harekin ezkontzen** (4); **ez ezkontzeko** (7); **ezkontza laster ezkontzekotan** (21); **ezkontzea da** (4); **ezkontzea erabaki** (6); **ezkontzea eta** (6); **ezkontzeko asmoa** (13); **ezkontzeko asmorik** (7); **ezkontzeko aukera** (13); **ezkontzeko baimena** (11); **ezkontzeko baimena eman** (4); **ezkontzeko erabakia** (4); **ezkontzeko eskatu** (11); **ezkontzeko eskubidea** (13); **ezkontzeko eta** (12); **ezkontzeko hitz** (7); **ezkontzeko hitz emanda** (4); **ezkontzeko hitza** (16); **ezkontzeko hitza eman** (8); **ezkontzeko hitza emana** (4); **ezkontzeko prest** (7); **ezkontzekotan dira** (5); **ezkontzekotan dire** (26); **ezkontzekotan zen** (5); **ezkontzen bada** (10); **ezkontzen da** (20); **ezkontzen dela** (4); **ezkontzen den** (9); **ezkontzen denak** (6); **ezkontzen denean** (4); **ezkontzen dira** (18); **ezkontzen diren** (10); **ezkontzen direnak** (4); **ezkontzen ez** (8); **ezkontzen zela** (7); **ezkontzen zen** (7); **ezkontzen zenean** (4); **ezkontzen ziren** (15); **ezkontzera zihoala** (5); **harekin ezkontzeko** (16); **harekin ezkontzen** (7); **homosexualak ezkontzea** (7); **homosexualak ezkontzeko** (4); **homosexualei ezkontzeko** (9); **homosexualek ezkontzeko** (6); **homosexualen arteko ezkontzen** (4); **laster ezkontzekotan** (26); **laster ezkontzekotan dire** (22); **nirekin ezkontzea** (4); **nirekin ezkontzeko** (7); **nola ezkontzen** (4); **ongi ezkontzen** (6)

---

ezkondugabe ik **ezkondu 6**.

---

ezkoneba *(orobat **ezkon-neba**)* *iz* koinatua.

Bain andreak gizabidetsu irribarre egin zuen, **ezkonebak** esandako hitzak zirelako haiek. Mirentxu Larrañaga

Gurin saltzaileak zioenez, bere **ezkon-nebari** begiak zabaldu nahi zizkion, zein dendatara egiten zuen maiz bisita begira zezala. Karlos Zabala

---

ezkonegun ik **ezkon 11**.

---

ezkoneraztun ik **ezkon 12**.

---

ezkonezin *(orobat **ezkon ezin** eta **ezkontezin**) izond* ezin ezkonduzkoa.

Ez alemanez noski; huts irrigarriak egingo nituen, nire paperarekin **ezkonezinak**. Juan Garzia

Baserria eta ni organikoki **ezkon ezinak**, *mekauen la belarra, mekauen aaa.* Joxean Sagaztizabal

Edo **ezkontezinak**. Joxerra Garzia

---

ezkonforme *adlag* **

Total, esan zuen Joxemarik, hemen jarri edo han jarri, zu beti **ezkonforme** egongo zara Pablo Sastre

---

ezkongabe **1** *izond* ezkondu ez dena.

Emakume **ezkongabea** zen, berrogei bat urte zituena. Joan Mari Irigoien

Lagunaren aitaren arreba **ezkongabea**. Aingeru Epaltza

Kandidoren izeba **ezkongabearen** etxea lehenbiziko solairuan zegoen. Pedro Alberdi

Soltero guztiak mutil **ezkongabeak** dira. Askoren artean

Gizon **ezkongabeek** arazorik gabe izan ahal dituzte harremanak prostitutekin. Jon Arretxe

Gizon ezkondua emakume **ezkongabearekin** erlazionatzen bada, haren emazteak sala dezake auzitegian, eta irtenbidea bigarren emakumea bigarren emaztetzat hartzea izan daiteke. Jon Arretxe

Raimundo Benvindo Silva zuzentzailea **ezkongabea** da eta ez du ezkontzeko asmorik. Jon Alonso

Emakume **ezkongabe** eta kastitatean bizi direnei eta ezkondu guztiei. Askoren artean

** Emakume **ezkongabea** eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta beroni gorputz-arimaz emanak bizi dira; ezkondua, berriz, munduko gauzez, bere senarrari atsegin nola emango. Elizen arteko biblia

Pistamiglio jauna, bada, sailburu ezin hobe bat zen, ez jada gaztea, **ezkongabea**, zentzuduna oso, guztiek estimatua. Juan Garzia

Ezkongabea naiz, ez dut ez emazterik ez umerik. Koro Navarro

Ezkongabea zarela? Ez hasi emazte bila. Elizen arteko biblia

Berrogei eta koska zituen emakumea, **ezkongabe** edo alargun bakartia, hitzordu itsuetan bere bizitzako gizonezkoa aurkitzeko esperantza oraindik galdu ez zuen horietakoa. Harkaitz Cano

Gizon bakoitza emakume guztiekin, **ezkongabe** zein senardun, eta emakume bakoitza gizon guztiekin. Juan Garzia

Galdetu nionean ea deitura hura, Mazzuchelli, senarrarena zen edo bere **ezkongabetako** deiturari eutsi ote zion, barre egin zuen, eta esan zuen senarra irlandar peto-petoa zela. Oskar Arana

Nik, Fulgor Sedanok, 54 urteko gizona, **ezkongabea**, lanbidez administratzailea, auziak abiarazi eta jarraitzeko gai, ahalez eta neure zuzenbidez, honako eskabide-azalpen hauek egiten ditut. Juan Garzia

2 (izen gisa)

Ezkontideek, izatezko bikote heterosexualek eta **ezkongabeek** izanen dute haur bat adoptatzeko eskubidea. Berria - Euskal Herria

Bost ziren: idazle bat, mediku bat eta hiru **ezkongabe** aberats, lanbiderik gabeak. Josu Zabaleta

Alde batean ezkonduak jartzeko agindu zuen, eta bestean **ezkongabeak**. Iñaki Iñurrieta

Ordena berri honek era guztietako jendea hartzen zuen, kleriko nahiz laiko, **ezkongabe** nahiz ezkondu, bai gizonezko eta bai emakumezko. **Ezkongabea** naiz eta bakarrik bizi naiz. Askoren artean

Luze gabe, emakume bat eseri zen laugarren tokian; ez zegoen antzematerik zer ote zen: ezkondua edo **ezkongabea**, senitartekoa, etxeko administratzailea edo apopilo arrunta. Jose Morales

Ni baino hiru-lau urte zaharragoa, **ezkongabea** edo dibortziatua, erdi mailako funtzionarioa edo bulego bateko enplegatua. Aingeru Epaltza

Ezkongabeen klub bateko kidea da. **Ezkongabeentzat** ez daukat Jaunaren agindurik. Koro Navarro

Ezkongabeei eta andre alargunei, dauden egoeran jarraitzea on dutela esaten diet, ni bezala. Elizen arteko biblia

Denbora batez, Lajosek senipartea eskuratu zuenean, elkarrekin bizi izan ziren hiriburuan, nik sekula ezagutu ez nuen **ezkongabe**-apartamentu zoragarri batean. Ander Irizar

Aldizkari batean baino gehiagotan "Urrezko **ezkongabea"** nintzela argitaratu zuten. Hasier Etxeberria

3 (adizlagun gisa)

1979ko abenduaren 19an hil zen, **ezkongabe**, Mexiko hirian. Edorta Jimenez

Bigarrenik, Voskuijlen alabetan zaharrena izateak, eta amak **ezkongabe** dagoelako txantxak egiteak; hirugarren, Bepek hogeita lau urte baizik ez izateak. Josu Zabaleta

Esadazu: zergatik egon zara hainbeste urtez **ezkongabe**? Patxi Zubizarreta

Ematen du berori ez dela ohartzen, Chasuble doktore maitea, **ezkongabe** gelditzera tematzen den gizona tentazio publiko bihurtzen dela betiko. Antton Olano

Ez zarete bakarrik bizi ahal izateko geratu **ezkongabe**; zuetako bakoitzak lagunak izaten ditu hala mahaian nola ohean, eta bakea besterik ez duzue bilatzen zuen. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta ezkongabea (6); **ezkongabe batek** (4); **ezkongabe eta** (3); **ezkongabea da** (6); **ezkongabea naiz** (6); **ezkongabea zen** (6); **ezkongabeak dira** (3); **gizon ezkongabeek** (3)

---

ezkongabego *iz* ezkongabetasuna.

Ezkongabegoa, izan ere, gogoz onarturiko agindua da fraide-jendearen artean, berezko baitu bizi-arau horrek autoritaterik gorenarekiko hurbiltasun eta mendekotasuna. Juan Garzia

---

ezkongabetasun *iz* ezkongabearen egoera. ik **zelibato**.

Ezkontza eta **ezkongabetasuna**. Elizen arteko biblia

Emakumearen parte-hartzea, hautazko **ezkongabetasun** edo zelibatua apaizen kasuan, homosexualitatea eta ezkontza... gai horren inguruan gogoeta egin behar du Elizak, eta herriaren oihuari kasu egin behar dio. Berria - Harian

---

ezkongabezia *iz* ezkongabetasuna.

Ezkongabezia da niretzat egoera posible bakarra, ez baitut ezein emakumerik dohakabetu nahi, eta emakume guztiek baitute dohakabe izateko joera. Joxe Austin Arrieta

---

ezkongai *(orobat **ezkon-gai** g.er.)* **1** *iz* emaztegaia edo senargaia; ezkongabea, ezkontzeko sasoian dagoena.

Nik ezagutzen ditudan **ezkongai** askok, kanpora begira, ez dute ezkontzerik nahi. Patxi Zubizarreta

Irudipena dut lehendabiziko garaietan -Flora eta biok **ezkongai** ginela, eta gerora ere bai, ezkondu ginenetik pare bat urtera arte-, amaginarrebak begiko ninduela. Ramon Saizarbitoria

Orain bazekien ezin zela Aluanekin ezkondu eta Abasen **ezkongaia** izatera kondenatua zegoela. Patxi Zubizarreta

Kelvinek hogeita hamabi urte zituen; **ezkongaia** zen. Gotzon Garate

Samiya eta Faahid **ezkongaiak** ziren. Gotzon Garate

Baina non dira **ezkongaiak**, non dira gonbidatuak? Anjel Lertxundi

Ezkongaiak ez dik portatu behar zuek ari zareten bezala; behiak eta aziendak ekartzea duk legea, eta ez bertakoak jatea. Juan Kruz Igerabide

Ulises megaroian geratu zen, Atenearekin batera **ezkongaien** heriotza hausnartzen. Juan Kruz Igerabide

Ama ere gutxi agertzen duk **ezkongaien** aurrera, goian aritzen baita ehundegian. Juan Kruz Igerabide

Beste diosesetarat igorri behar diren ezkontza adierazpenak, **ezkon-gaien** xedeak, ala katolikoenak, ala bataiatuak ez direnenak, edo beste erlijione batean bataiatuenak. Herria

Artzain bakoitzak artaldeko animaliarik ederrena eraman behar izaten ziek egunero **ezkongaiei**. Juan Kruz Igerabide

2 (izenondoekin)

Elkarri hitzemanda aldendu ginen: gero, libre nituen gauetan, sarritan ibiltzen nintzen harekin, eta dantzara edo zinemara joaten ginen, **ezkongai** jatorrak bezala. Josu Zabaleta

Ez al zuen erabakia hura zela **ezkongai** egoki bakarra? Patxi Zubizarreta

-Darruitx xaharra **ezkongai** ona izan zitekean, bada! Ez duk denbora gehiago ibili behar etxetik kanpo, ondasunak utzirik, **ezkongai** harro horiek dena suntsitzeko arriskuan. Patxi Zubizarreta

Jadanik ongitxo zekien Abasek zer nahi zuen eta ez zuen ahantzia gaztea kalezuloko **ezkongai** bakarra zela. Patxi Zubizarreta

Azkenean, Dongek bere betebeharrari pentsatu zuen eta bere nagusien izenak eskatu zizkion bere **ezkongai** ohiari. Ramuntxo Etxeberri

Orain biok gara **ezkongai** bihotz-hautsiak -berriz eseri zen-. Koro Navarro

3 (izenondo gisa)

Gizonak neska **ezkongaia** landan aurkitzen badu, heldu eta berarekin etzaten bada, gizona bakarrik hilko dute. Elizen arteko biblia

-Neskatxa **ezkongai** politak bilatu behar zaizkio erregeari. Jose Antonio Mujika

Martari, lagun **ezkongai** bakarrari kontatuko zion dena, eta bien artean saiatuko ziren misterio ilun hura argitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

-Errege jauna, neska gazte **ezkongai** bat bilatu beharko genuke zure zerbitzuan jartzeko. Jose Antonio Mujika

4 (adizlagun gisa)

Ezin zuen buruan sartu Pia zintzoa zela, birjina ere bai agian, eta espero zuena **ezkongai** ibili eta ezkontzea zela, beste neska guztiek bezala. Josu Zabaleta

Zerrizainak, berriz, jatorriz egiptoarrak izan arren, denetan bakarrak dira inongo tenplutara sartzen ez direnak, eta inork ez die beren alabarik **ezkongai** eman nahi, ez eta beraien artetik bestek hartu ere. Patziku Perurena

5 (hitz elkartuetan)

Badituzte beren eginkizunak, Kleimanek bere osasuna, Bepek bere **ezkongai** harremana, erraza eta gutxiagorik ere ez dena. Josu Zabaleta

Horrek ez zuen kezkatzen orduan; izan ere, asebeteta sentitzen zen euren **ezkongai**-harremana zuzena zelako, betidanik aditua baitzuen benetako maitasuna nekez adieraz omen daitekeela hitzez. Mirentxu Larrañaga

Ezkongai-parea ikustean, atsegin biziz gogoratzen zuen nola irten zen bera ere Sandymont-eko Itsasoko Izarra elizatik, gizon alai ondo jandako baten besotik. Irene Aldasoro

6 ***ezkongaietan*** ezkon aurreko garaian.

Ezkongaietan, Kernan jauna ez zitzaion galai batere txarra iruditzen. Irene Aldasoro

Ezkongaietan izan zelako hori guztia. Pello Zabala

Emaztea ahalegindu zen gogora ekartzen zertaz hitz egin ohi zuten ezkondu aurretik, **ezkongaietan** alegia. Mirentxu Larrañaga

Horrekin batera, Um Hamidak jakinarazi zion bere alaba Abas Al-Helurekin **ezkongaietan** zebilela. Patxi Zubizarreta

· Orduan, aurpegia harria baino sorrago, **ezkongaietako** eraztuna kendu nuen eta haren eskuaren gainean utzi. Karlos Zabala

Gogoan dut, Israel, nola maite ninduzun gazte zinenean, gogoan zure **ezkongaietako** maite-laztana: nola ibili zinen nire ondoren basamortuan, erein gabeko lurrean. Elizen arteko biblia

7 ***ezkongai lore*** *(orobat **ezkongailore**)* mugeta *(Convallaria majalis)*.

Mugetatzea eta **ezkongai-lore** ere deitzen zaio, baita ezkilalore ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maiatz edo **ezkongai-lore** finak bere xilintxadun zango xuria agertu du: "Zorion ekarle" omen da. Herria

Batzuek **ezkongailore** deitzen dutena eta beste batzuek naski izarbelar. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta ezkongai (3); **eta ezkongaiak** (4); **ezkongai guztiei** (6); **ezkongai onargarri** (3); **ezkongaiak barrez** (3); **ezkongaiak ez** (3); **ezkongaiak hil** (3); **ezkongaiak hiltzen** (4); **ezkongaiak ziren** (4); **gazte ezkongai** (3)

---

ezkongaialdi *(orobat **ezkongai-aldi** g.er.)* *iz* norbait ezkongai den aldia.

Ez zen ausartu azaltzen ez zuela oraindik bere burua gai ikusten **ezkongaialdia** formalizatzeko, bulegari hutsa zen, etorkizun segururik gabekoa. Bego Montorio

Ikusi baitzuen ez zuela galdetzen jakitearren eta agian kontra egiteko, ezpada **ezkongaialdia** ofizial egiteko xede bakarrarekin. Bego Montorio

Egia esan, ni ez naiz **ezkongai-aldi** luzeen aldekoa. Antton Olano

---

ezkongailore ik **ezkongai 7**.

ezkongarri *izond pl* ezkon daitezkeenak.

Batzarreko Milagros Rubioren iritziz, berriz, Bergarako proposamena eta Nafarroako errealitateak behar duena ez dira **ezkongarriak**. Berria - Euskal Herria

ezkongau **ik ezkon 20**.

ezkonge *izond/iz* ezkongabea.

Fraile **ezkongea**, Antonio, hala nahi dutenak uztarrian lotzen, eta ezkontza hain berexia bizi izan zuena, Jose, mingotsak gozatzen. Pello Zabala

Emakumea **ezkongea** da. Anjel Lertxundi

Jendea orduan hasi da Urkiolara senar bila joaten diren **ezkongeen** kontura kantuan eta zirika. Anjel Lertxundi

ezkongela *(orobat **ezkon gela**) iz* ezkontideen gela.

Utz beza senar-berriak **ezkongela** eta emazte-berriak ezkon-ohea. Elizen arteko biblia

Uholdea bezain oldarkoi, aitaren **ezkon-gelara** sartu zara, zeure aitaren ohea lohituz. Elizen arteko biblia

Honela egingo duzu: **ezkongelan** sartzen zarenean, hartu arrainaren bihotza eta gibel-puska bat, eta ipin itzazu intsentsuen sutontzian. Jose Antonio Mujika

Perfekzio honengatik hartuko zaitu beretzat Erregeak berak zeruko **ezkon-gelan**, non ospetsu esertzen baita izarrezko aulkian. Askoren artean

Eta handik, senarra **ezkongelatik** bezala irten zen, atleta gisa, bere lasterketa egitera pozik (Sal. Imanol Unzurrunzaga

ezkongetasun *iz* ezkongabetasuna.

Jeronimoren **ezkongetasunari** buruzkoak ziren txantxa guztiz gehienak. Anjel Lertxundi

Pixkanaka-pixkanaka baztertu egin zuten Jeronimo, eta jendeak berehala galdu zuen Jeronimoren **ezkongetasunarekiko** arreta, ez baitago erreakziorik gabeko iraina baino kontu gatz-ozpin gabeagorik. Anjel Lertxundi

ezkongetza *iz* ezkongabearen egoera.

Lege zibilak saihets dezake indarra eta bortxa erabiltzea, senar-emazte pozgabeak loturik edo ezkon barruko **ezkongetza** nahitaezkoan iraunarazteko -azken hori deitoragarri izan arren, ohitura nahiz gizartearentzat-. Andres Urrutia

ezkongile *iz* ezkontzak egiten dituena.

Ezkongileak harrituta zeuden: astean bederatzi groshen irabazten zituen maisu-laguntzaile bat, nola ausartzen zen hain zorrotza eta handinahia izaten? Koro Navarro

Alargundu zenetik urte asko igaro baziren ere, Alchonon ezkontzeko ahaleginean zebiltzan oraindik ere **ezkongileak**. Koro Navarro

Halakoetan **ezkongile** bat bidaltzea izaten da usadioa. Koro Navarro

ezkongose *iz* ezkontzeko gosea duen pertsona.

Orduan, Atenea mozorrotuak esan zion bidaltzeko jauregitik **ezkongose** haiek guztiak, eta eska ziezaiola amari joateko bere gurasoen etxera. Juan Kruz Igerabide

ezkonkide **1** *iz* ezkonlaguna.

Badira San Valentin eguna gibela erretzeraino higuingarri zaienak, ezkontza bat jasan ezin dutenak, begirada okertzen dutenak bikote bat musuka ikustean, [...] urte askotako **ezkonkideak** kalean elkarrekin doazelako bekaizti ibiltzen direnak. Pako Aristi

Ezkonkide edo bikoteak eta lan banaketa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2 irud/hed

Benetako artistak arteaz (**ezkonkide** laztanaz!) hitz egiten du, aldez edo moldez, bere sorkuntza-lanetan. Anjel Lertxundi

ezkonlagun *iz* emaztea edo senarra bata bestearekiko. ik**ezkontide; bizilagun**.

Zeren bizitzak erakutsi baitit ezen **ezkonlaguna** estu eta larri ikustea dela -eta, ahal izanik, hankaz gora- senar-emazte gogaituen nahia eta gutizia. Joan Mari Irigoien

Bihotz bat eginik bizi izan baitziren, (jainkozkoak aski sumatzen ez dituen giza arimari dagokion bezala) zorion hura ere nahi zuen oraindik, eta jendearen oroitzapenean utzi, itsasoz haraindi erromes ibilita ere, bi **ezkonlagunen** gorpuzkiak lur berak estaltzen zituela. Imanol Unzurrunzaga

ezkonlege *iz* ezkontza legea.

Anitz predikatu diot haatik **ezkonlegeaz**; puntu horren inguruan deusek ez dezake nire zorroztasuna gaindi. Jon Muñoz

ezkonsari *(orobat **ezkon-sari** eta **ezkontsari**) iz* emazteak ezkontzara dakartzan ondasunak edo dirua. ik**dote**.

Bere baitan egin zuen ezen, bere ezkontza propioaren aurretik, ez ote zuen neskaren **ezkonsaria** prestatzen hasi beharko. Fernando Rey

Familia bien artean eztabaidatu eta negoziatu zituzten **ezkonsariak** eta elkarketaren gorabeherak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zu, ordea, emakumeen Erregina, **ezkonsaririk** ez duen bakarra zara, izan ere zure maitasuna espirituala eta zerutikakoa baita. Patxi Zubizarreta

Eta mila dinar hauek zure **ezkonsaria** dira! Patxi Zubizarreta

Neska horrek bi mila errubloko **ezkontsaria** izango balu, mauka ederra lukek berarekin ezkontzea. Jose Morales

Etxaldea da nire **ezkonsaria**. Oskar Arana

Ea norekin zegoen ezkondurik, ea **ezkontsaria** handia ala txikia izan zen, ea aitaginarreba pozik geratu zen ala haserretu egin zen ezkontzan opari gutxi jaso zituelako. Jose Morales

Adulterioaren emaitzei dagokienez, direnak direla, etxean hartu behar dira senarrarenak ez diren umeak ere, eta, emaztearenak direnez, emakume horren **ezkonsariaren** zati bat jasotzeko eskubidea dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Antioko bere adiskideekin jauretxe hartara joan zen, jainkosarekin ezkontzeko aitzakiaz, horrela, **ezkon-saritzat** hango aberastasunak hartuko zituelakoan. Elizen arteko biblia

Ezkonsari ederra igartzeaz gain, andre gaztea barran aparta egongo zela pentsatzen zuen. Karlos Zabala

Esposatzen bahaiz, izurri hau emango dinat **ezkonsari** : xahu izanagatik izotzaren pare, aratz elurra bezain, ez haiz libratuko kalumniatik. Juan Garzia

---

ezkonsasoi *iz* ezkontzeko garaia.

Babilonian, urtean behin, **ezkonsasoira** heldutako neskatxak, denak bildu eta, plaza batera eramaten zituzten, eta beren inguruan gizonezko pila jartzen zen. Patziku Perurena

---

ezkontagiri ik **ezkon 1**.

---

ezkontanaia ik **ezkonanaia**.

---

ezkontarazi ik **ezkonarazi**.

---

ezkontaurreko ik **ezkon 3**.

---

ezkontegun ik **ezkon 11**.

---

ezkontetxe ik **ezkon 27**.

---

ezkontezin ik **ezkonezin**.

---

ezkontide *iz* emaztea edo senarra bata bestearekiko. ik **ezkonlagun; bizilagun**.

-Ene! -esan zuen Matson andreak, **ezkontidea** ikusi orduko. Mirentxu Larrañaga

Eta ondoko udaberrian, apirilaren 28an zehazki, esposatu egin ziren Schoemborg Kardinalaren kaperan, Prahan, Don Carlos eta Berthe **ezkontideak** . Txillardegi

Onuraduna **ezkontidea** denean, 76.000 eurotik beherako ondasunak ez zuen zergarik ordaintzen. Berria - Ekonomia

1967ko lurralde okupatuetako palestinarrekin ezkonduta dauden israeldarrei **ezkontideekin** Israelen bizitzea debekatzen die legeak. Berria - Mundua

Dibortzioa eskuratu duen **ezkontideak** gorde behar ditu, kalteordain moduan, ezkontza kontratuan itundutako abantailak. Andres Urrutia

Legeak bi urte ematen zizkion berriro ezkontzeko **ezkontidea** hil eta gero bizirik geratzen zen senarrari edo emazteari. Iñaki Iñurrieta

Instituzio zaharrek hiritar guztiak ezkontzera behartzen zituztenez, eta **ezkontidea** zapuzteko edo dibortziatzeko baimenari esker ezkontza leunduta zegoenez, ohituren ustelkeria izugarri batek baizik ezin zezakeen ohaidetza ekar. Iñaki Iñurrieta

Elkarren ondoan dautza, koroak buruan, erregea bere lehoiarekin, erregina bere erbi-zakurrarekin, marmolezko etzangian, **ezkontideen** hilobi hunkigarrian. Koldo Izagirre

Ohiturak, zeinak bortizten baititu suntsitzen ez dituen jaidura guztiak, emeki emeki dakar adiskidantza eztia, fidantzia amoltsua, estimuari erantsirik osatzen dutenak, nire ustean, **ezkontideen** zorion sendo zinezkoa. Jon Muñoz

Ezkontideen arteko izate eta aiurri bateraezintasunak alega daitezke ezkontza bera desegiteko. Andres Urrutia

Zerrizainak, berriz, jatorriz egiptoarrak izan arren, denetan bakarrak dira inongo tenplutara sartzen ez direnak, eta inork ez die beren alabarik ezkongai eman nahi, ez eta beraien artetik bestek hartu ere; hala zerrizainek elkarren artean eman eta hartu ohi dituzte **ezkontideak** . Patziku Perurena

Aldaketok egin ondoren, sexu berekoak diren eta ez diren **ezkontideek** eskubide berberak izanen dituzte, bai eta umeak adoptatzekoa ere. Berria - Euskal Herria

Aurrerantzean, ***ezkontide*** aipatuko du araudi horrek, *senar* jartzen zuen tokian. Berria - Euskal Herria

Izan ere, **ezkontide** egokirik ez zioten eskaini. Koro Navarro

2 irud/hed

Akatsaren lagun edo hutsaren **ezkontide** . Iñaki Segurola

3 (izenondo edo kideko gisa)

Fernando V.a Katolikoa (Sauze, 1452 - Madrigalejo, 1516), Aragoiko erregea eta Gaztelako errege **ezkontidea** hango Isabel I.a erreginarekin ezkondu zenez geroztik. Aingeru Epaltza

4 (hitz elkartuetan)

J.M. letrak dituen urrezko zigilutik behatz biluzietara mugitu duzu eta, handik, **ezkontide** eraztunez beztiturik daukan hatz falikora. Eider Rodriguez

Horren ondotik, Iruñea sagar ondua bezala erortzeko kontua egina zuen errege-**ezkontideak** . Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ezkontide** (3); **ezkontideen arteko** (8)

---

ezkontitz ik **ezkon 17a**.

---

ezkontots ik **ezkon 28a**.

---

ezkontra *iz* **

Miliunka jenderen aitzinean hor, animatzaile andereak egin du bere gisako **ezkontra** gizon bat eta emazte baten artean. Herria

Alde batetik auzapez batzu altxatu dira horren kontra, bereziki Partidu Popularreko eskuinekoak, Auzapezek kontzientzia objekzioaren izenean **ezkontra** mota horren errefusatzea galdatua izanen zaielarik. Herria

---

ezkontsari ik **ezkonsari**.

---

ezkonturte ik **ezkon 56**.

---

ezkontza *iz* bi pertsona senar-emazte bihurtzen diren elizkizuna edo zeremonia. ik**ezkontze**.

Sineste zahar horrek oraintsu arte iraun du gure artean, **ezkontza** edo ezteietako ospakizunetan. Patziku Perurena

Ezkontza elkartea da; elkarterik naturalena, santuena eta guztien artean ere, urraezinena. Andres Urrutia

Ezkontza ez da egoera soila, bizi-egoera baino. Andres Urrutia

Nik ezin ulertu zergatik tematzen zen Ivy, bestelako bere iritzietan-eta emakume modernoa izanik, gure harreman hura **ezkontza** bihurtzen. Joxe Austin Arrieta

Barda gauean etorri zitzaidan ikustera, **ezkontza** proposatu zidan eta nik onartu nuen. Elena Touyarou

Norminhak eta biok taxutu genuen **ezkontza** hura, Bobekin batera, hark Bahiara egin zituen bi bidaiatan. Karlos Zabala

Justinianok agindu zuen emazteak senarra zaputz zezakeela horregatik dotea galdu gabe, baldin eta bi urtez **ezkontza** kontsumatu ezin izan bazuen. Iñaki Iñurrieta

Horren argitan ulertzen da Moisesen legeek, egiptoarrenek [...] eta beste zenbait herritakoek koinatu-koinaten arteko **ezkontza** baimentzea, eta **ezkontza** horiek beste nazio batzuetan debekatuta egotea. Iñaki Iñurrieta

Bainu publikoetan lan egiten zuen, baita **ezkontzak** bideratzen ere. Patxi Zubizarreta

Gure **ezkontzak** huts egin zuen, baina errua ez zen harena bakarrik izan. Joan Mari Irigoien

Alaben ondorengotza-eskubidea hain ondo ezarrita agertu zen garai hartan, non Luis Gazteak, Leonorrekiko **ezkontza** desegin eta gero, inolako eragozpenik gabe itzuli baitzion Guiena. Iñaki Iñurrieta

Bi ume izan zituzten (iloba Tom eta iloba Aurora), baina **ezkontza** hautsi egin zen hamabost urte geroago. Oskar Arana

Bazirudien Tomek bizitzaren aurreko jarrera zentzuzko, gogoetazko eta doi bat harridurazkoarekin eraman zuela bere gurasoen banantzearen hondamendia -bai eta arreba gaztearen nerabe-amorrualdiak ere; amaren bigarren **ezkontza** gaitzetsirik, etxetik alde egin baitzuen hamazazpi urterekin-. Oskar Arana

Aitaren eta alabaren arteko **ezkontza** naturaz kontrakoa da. Iñaki Iñurrieta

-Baina **ezkontzara** joango zara, ez? Koro Navarro

Gonbidaturik nengoen **ezkontzara**, jakina. Agustin Otsoa

Ezkontzaren bezperan iritsi zen Londresa Lloyd doktorea. Koro Navarro

Ezkontzaren eguna iritsi da. Martin Anso

Ezkontzaren Saloina Baionako Lauga Salan iragan da joanden asteburuan. Herria

Ezkontzaren xede nagusietako bat bategite ezlegezkoen ziurgabetasun guztiak ezabatzea denez, erlijioak bere ezaugarria ezartzen dio, eta lege zibilek ere berea eransten diote, ahalik eta benetakotasun handiena izan dezan. Iñaki Iñurrieta

Ezinezkoa zen lege zibilek **ezkontzaren** hautsezintasuna adieraztea, erlijioaren legeak gauza bera egiten ez zuen bitartean. Andoni Egaña

Azken iraultza: **ezkontzaren** arrakasta gizona gizonarekin, emaztea emaztearekin. Herria

Arrazoiak agintzen du ezen, **ezkontza** badenean, haurrak aitaren egoerari jarraitu behar zaizkiola, eta **ezkontzarik** ez denean, amari baino ez dagozkiola. Iñaki Iñurrieta

Beraz, neba-arreben arteko **ezkontza** besterik gabe desegina gelditu zen. Gotzon Garate

Ezkontzatik at sorturiko seme-alaben egoera zehaztugabea da, neurri handiagoarekin zein txikiagoarekin. Andres Urrutia

Rezesvintok, gainera, godoen eta erromatarren arteko **ezkontzen** debekua kentzeko legea egin zuen. Iñaki Iñurrieta

Naturatik ateratako araua da ezen, zenbat eta gehiago urritu egin litezkeen **ezkontzen** kopurua, gehiago galbideratzen direla egiten direnak; zenbat eta ezkondu gutxiago izan, leialtasun gutxiago dagoela ezkontzetan. Iñaki Iñurrieta

Planen bat egiten aritzen zen beti: gizadia salbatu, Palestina juduei itzuli, familia bizitza berriztatu, **ezkontzen** antolatzea zientzia eta arte bihurtu. Koro Navarro

Joachim prest zegoen **ezkontzako** aitabitxia izateko. Joxe Austin Arrieta

Emakumea, **ezkontzako** legeak haustean, irten egiten delako bere mendekotasun naturaleko egoeratik. Iñaki Iñurrieta

Harexentzat neukan bala bat gorderik nire aitaren **ezkontzako** trajean. Juan Kruz Igerabide

-Telleria izan zen zuen **ezkontzako** aitapontekoa, ezta? Xabier Mendiguren Elizegi

Nork frogatu ez naizela patxa baten **ezkontzaz** kanpoko alaba? Patxi Zubizarreta

Orain **ezkontzakoan** arroza botatzeko ohitura da, garai batean ordea intxaurrak, 1742an Ultzama alderako agintzen denez: [...]. Patziku Perurena

Neskazaharra seguraski; eraztun ugari erietan, baina **ezkontzakorik** ez ageri. Aingeru Epaltza

Zenbat eta ezkondu gutxiago izan, leialtasun gutxiago dagoela **ezkontzetan**; lapur gehiago dagoenean ere, lapurreta gehiago izaten baita. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Auzoko emakumeak Yentl ez joateko ahaleginean aritu ziren, eta ezkontzagileek burutik zegoela esan zuten, errazago zuela han, Yaneven, **ezkontza** on bat egitea. Koro Navarro

Hain **ezkontza** abantailatsua beharko dut bada hautsi? Jon Muñoz

Ezkontza goiztiarrek eta erroldarik ez egoteak «nabarmen gaiztotzen dute» haurren eta emakumeen egoera. Berria - Gaiak

Barojak idealizatu egiten du bikote-bizitza -betiere **ezkontza** burgesaren, eta, beldur naiz, erlijiozkoaren barruan, tramitezko kontu honetaz hitz egiten ez badu ere-. Josu Zabaleta

Lurralde bereizketaz gain, **ezkontza** mistoak debekatu zituzten, zuriak ez zirenei zegokien lur kopurua arautu zen, Ez du arazorik homosexualen arteko **ezkontza** zibilak ahalbidetzen dituzten estatuekin. Berria - Mundua

Ezkontza publiko eta erazkorik gabe, seme-alabatza kontu guztiak ezerezean geratuko lirateke; amatasuna, beti agerikoa; aitatasuna, aldiz, inoiz ere ez. Andres Urrutia

Zureak porrot egin bazuen ere, bada **ezkontza** zorionekorik. Patxi Zubizarreta

Gure ohitura eta usadioei egotzi zaie **ezkontza** makurrak sustatzea. Andres Urrutia

Ezkontza homosexualari bidea ireki dio Espainiako Kongresuak. Berria - Harian

Hantxe jarraituko zukeen Bette [...] Dombrowski-rekiko **ezkontza** gertagaitza gertatu izan ez balitz. Oskar Arana

Legezkoak dira arauzko **ezkontzaren** barneko seme-alabak, baldin eta **ezkontza** hori publikoa eta erazkoa bada. Andres Urrutia

Justinianok baliozko deklaratu zituen Lege Papiarrek debekatutako **ezkontza** guztiak. Iñaki Iñurrieta

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bitartean Sarak, Ekbatanan bizi denak, gaitz izugarria bizi du, ezkondutako gizon guztiak hil egiten zaizkio **ezkontza**-gauean berean. Jose Antonio Mujika

Maitalea duen gizonezkoa, hutsegiterik gabe, **ezkontza**-bide onera erakartzeko errezeta. **Ezkontza** agiri frango baziren ere: ezkongaien izenak, sorterriak eta sortegunak adieraziak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hizkera bera darabil hemen Bonabenturak, Has 2,24an gizon-emakumeen **ezkontza**-batasuna adierazteko erabiltzen diren hitzak aipatuz. Askoren artean

Neska bat Galdona aldetik zetorren **ezkontza**-jantzian eta bizi-bizi. Anjel Lertxundi

Herrialde eta garai guztietan gertatu da erlijioa **ezkontza**-kontuetan sartzea. Iñaki Iñurrieta

Egunkarian azaldu zen gure **ezkontza**-iragarpena. Joxe Austin Arrieta

Bazuen horretarako eskubidea: ofizial atzerritar harekin ezkontzean, **ezkontza**-hitzarmenean ezarri zuen pribilegio hori. Xabier Olarra

Ez **ezkontza** elizkizunik aberatsenetan, ez hiletarik dotoreetan ere. Felipe Juaristi

Gipuzkoan hilabete bat eta hiru artean itxaron behar izaten da **ezkontza** txostena tramitatzeko. Berria - Harian

Mikek **ezkontza**-lizentziak faltsutzen zituen, beharrezkoa baldin bazen. Karlos Zabala

Lotsa gaiztokoa militar-jende hura, baina bai inozoak **ezkontza**-eraztuna emateraino ere iritsi ziren haiek guztiak. Karlos Zabala

Marisa eta Laureanoren **ezkontza**-argazkia eta beste pare bat ilobarenak. Jon Maia

Europako **ezkontza**-aldizkarietan noizbehinka xehetasun hau eridenen duzu: "vegetarian". Gotzon Garate

Zergak ordaintzen dituztenen kopurua handitzeko, hamabost urte dituzten indiar guztiek ezkondu beharra daukate; eta hamalau urtetan ere arautu izan da indiarren **ezkontza**-adina, gizonezkoei dagokienez, eta hamahirutan emakumeei dagokienez. Iñaki Iñurrieta

Notarioen jardunek eta euskal herritarren jaidurek luzaroan ahalbideratu zuten, *Code Civil* horren azpian, baserriak oso-osorik zaintzea, **ezkontza** kontratuak eta oinordeko bakarraren izentazioa tartean zirela. Andres Urrutia

Ezkontza kontratuek leku berezia dute Kode Zibilaren proiektuan. Andres Urrutia

Emaztea senarra bizi den bitartean bakarrik dago legez senarrari lotua. Senarra hiltzen denean, ordea, **ezkontza**-legetik askatua gelditzen da. Elizen arteko biblia

"Saròd e senssa mañòd", esaera horixe baitzerabilten **ezkontza**-artekariek neskato itsusi eta dotegabeez. Juan Garzia

Ezkontza-nahasle izendatuko dute eta urdanga deitura ezarriko harekin nahasi denari. Aingeru Epaltza

Uste dut oso eskarmentu gutxi duzula **ezkontza**-eskeak egiten. Antton Olano

Urteen poderioz, sentimendu hura ahuldu egin zitzaion, halako moldez non baiezkoa erantzungo baitzion **ezkontza** eskabide bati, baldin eta norbait halako asmoekin hurbildu izan balitzaio. Patxi Zubizarreta

Hargatik ahalegintzen zen **ezkontza** harremanen etekinik handiena ateratzen, neurririk gabe, ahalik eta grinatsuen. Patxi Zubizarreta

Beste behin, Mirenen **ezkontza** aurreko agur afarian, Joseba mozkortzen ahalegindu ginen, baina orduan ere huts egin genuen. Patxi Zubizarreta

Bigarren **ezkontza**-urteurrena ospatu berri zenuten, eta esan zenidan zure bizitzako bi urterik zoriontsuenak izan zirela. Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Indonesiako presidente Megawati Sukarnoputri Bruneiko errege **ezkontzan** zegoen atentatua gertatu zenean, eta Berria - Mundua

5 irud/hed

Idazle ingelesaren ikuspegitik, Nihat eta Realaren arteko **ezkontza** nahiko ondo bukatzeko bidean zen. Berria - Kirola

Bruselak bezperan Air France eta KLMren arteko bat-egitea onartu eta gero, zurrumurruek diote hurrengo **ezkontza** Iberia eta British Airwaysen artekoa izango dela. Berria - Ekonomia

6 ***ezkontza egun*** ezkontza ospatzen den eguna. ik **ezkonegun**.

Jar dezagun etziko, esaterako, **ezkontza eguna**. Juan Garzia

Presio horiek gora egin zuten **ezkontza-eguna** hurbildu ahala; familia herrira etorri zitzaionean, bereziki. Xabier Olarra

Bitartean, hurbiltzen ari zen Anshelen **ezkontza eguna**. Koro Navarro

Jakin dut, ospe handian iragan dela Sylvie Elizagoihenen **ezkontza eguna**. Herria

Hilerrian, hilkutxa soken artean kulunkatzen jaitsi zutenean, ama negar-zotinka hasi zen, nire **ezkontza egunean** bezala. Joseba Urteaga

Badakizue nolakoa den Eñaut... ez litzateke garaiz heltzeko gai izango bere **ezkontza egunean** ere. Sonia Gonzalez

Jada buruan ditu **ezkontza eguneko** ospakizunak, bazkaria, gonbitak. Berria - Harian

Gurasoen **ezkontza-eguneko** argazki batean. Iñaki Mendiguren

Etxe askotan dira haren argazkiak, bataioetan eta **ezkontza egunetan** egindakoak. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

arauzko ezkontza (4); **arteko ezkontza** (62); **bere ezkontza** (14); **beren ezkontza** (5); **bi ezkontza** (27); **bi ezkontza izan** (12); **bikote homosexualei ezkontza** (4); **da ezkontza** (21); **da ezkontza bat** (7); **du ezkontza** (6); **duen ezkontza** (5); **dute ezkontza** (4); **edo ezkontza** (4); **egin ezkontza** (6); **ere ezkontza** (4); **eta ezkontza** (33); **ez ezkontza** (6); **ezkontza agorrilaren** (12); **ezkontza azaroaren** (4); **ezkontza azken** (4); **ezkontza bat** (38); **ezkontza bat herriko** (4); **ezkontza bat izan** (8); **ezkontza batean** (11); **ezkontza baten** (15); **ezkontza batera** (8); **ezkontza bera** (9); **ezkontza dela eta** (4); **ezkontza egun** (13); **ezkontza egun hautan** (11); **ezkontza eguna** (8); **ezkontza egunean** (11); **ezkontza elkartea** (4); **ezkontza eraztuna** (4); **ezkontza ere** (5); **ezkontza eskabidea** (22); **ezkontza eskabidea egitera** (6); **ezkontza eta** (33); **ezkontza ez** (26); **ezkontza ez da** (10); **ezkontza ezkontzako** (5); **ezkontza gizon** (5); **ezkontza gure** (4); **ezkontza guztiak** (4); **ezkontza hau** (4); **ezkontza hautsi** (8); **ezkontza helduden** (5); **ezkontza helduden larunbatean** (5); **ezkontza herriko** (4); **ezkontza hitza** (5); **ezkontza homosexualak** (4); **ezkontza hori** (12); **ezkontza horiek** (10); **ezkontza hura** (10); **ezkontza iragan** (18); **ezkontza iragan ebiakoitzean** (7); **ezkontza iragan larunbatean** (9); **ezkontza irailaren** (4); **ezkontza izan** (23); **ezkontza izan dira** (6); **ezkontza izan ditugu** (8); **ezkontza joan** (18); **ezkontza joan den** (18); **ezkontza on** (4); **ezkontza sakramendu** (4); **ezkontza zibilen** (5); **ezkontza zibilen erregistroan** (4); **gero ezkontza** (4); **gure ezkontza** (9); **haren ezkontza** (6); **homosexualei ezkontza** (4); **homosexualen arteko ezkontza** (13); **homosexualen ezkontza** (7); **iholdi ezkontza** (7); **iholdi ezkontza duela** (5); **irisarri ezkontza** (16); **irisarri ezkontza uztailaren** (4); **isturitze ezkontza** (4); **izan da ezkontza** (8); **lehen ezkontza** (4); **nire ezkontza** (4); **pertsonen arteko ezkontza** (4); **zen ezkontza** (10); **zuen ezkontza** (10); **zuten ezkontza** (5)

aitaren ezkontzako (8); **aitaren ezkontzako trajean** (5); **an ezkontzako** (6); **arteko ezkontzak** (65); **arteko ezkontzak debekatzeko** (8); **arteko ezkontzak legeztatu** (5); **arteko ezkontzak onartzen** (4); **arteko ezkontzaren** (8); **berekoen arteko ezkontzak** (5); **beren ezkontzaren** (4); **bikote homosexualen ezkontzak** (6); **bikoteen arteko ezkontzak** (4); **bikotekideen arteko ezkontzak** (4); **dute ezkontzako** (5); **dute ezkontzako sakramendua** (5); **elizan ezkontzako** (11); **elizan ezkontzako sakramendua** (6); **elizan ezkontzako sakramenduak** (5); **eta ezkontzak** (10); **eta ezkontzako** (4); **eta ezkontzaren** (10); **ezkontza ezkontzako** (5); **ezkontzak debekatzeko** (10); **ezkontzak egin** (4); **ezkontzak eta** (12); **ezkontzak ez** (7); **ezkontzak legeztatu** (5); **ezkontzak onartzen** (5); **ezkontzako sakramendua** (51); **ezkontzako sakramendua errezebitu** (10); **ezkontzako sakramendua ukan** (19); **ezkontzako sakramenduak** (27); **ezkontzako sakramenduak elgarretaratu** (25); **ezkontzako sakramenduaz** (5); **ezkontzako sakramenduaz elgarretaratu** (5); **ezkontzako trajean** (5); **ezkontzara joan** (4); **ezkontzaren alde** (6); **ezkontzaren aurkako** (4); **ezkontzaren berri** (5); **ezkontzaren kontra** (5); **ezkontzaren ondoren** (4); **ezkontzari buruzko** (7); **ezkontzari eta** (4); **ezkontzarik ez** (4); **ezkontzatik kanpo** (5); **figaroren ezkontzak** (5); **homosexualen arteko ezkontzak** (29); **homosexualen arteko ezkontzaren** (4); **homosexualen ezkontzak** (10); **lehen ezkontzak** (4); **pertsonen arteko ezkontzak** (7)

arteko ezkontzen (11); **arteko ezkontzen aurka** (5); **ezkontzen aurka** (9)

---

ezkontzagile *iz* ezkontzak adosten dituen pertsona. ik **ezkontzagin**.

Ezkontzagileak hainbat emakume proposatu zituen errabinoarentzat, baina erantzun bera eman zien hark denei: [...]. Koro Navarro

Ezkontzagileak atzetik dabilzkit, baina ezin dut erabakirik hartu. Koro Navarro

Auzoko emakumeak Yentl ez joateko ahaleginean aritu ziren, eta **ezkontzagileek** burutik zegoela esan zuten, errazago zuela han, Yaneven, ezkontza on bat egitea. Koro Navarro

---

ezkontzagin *iz* ezkontzagilea.

Behin baino gehiagotan jo zuen **ezkontzaginarengana**, hark auzia zertan zen argi ziezaion, eta betiere agindua zor zela adierazten zion. Patxi Zubizarreta

Ezkontzaginarena eginez. Joxan Elosegi

Atzera eseri zelarik, **ezkontzaginarekin** izandako solasaldia hitzez hitz berritzeari lotu zitzaion. Patxi Zubizarreta

---

ezkontzaldi *iz* norbait ezkondurik dagoen aldia.

Bai, Beyliren mutila naiz, zure **ezkontzaldian** estropozo egin zuena. Javi Cillero

ezkontzazale *izond* ezkontzaren zalea dena.

Ni ez naiz **ezkontzazale**, baina norbaitekin ezkonduz gero, zu aukeratuko zintuzket. Patxi Zubizarreta

ezkontze *iz* ezkontzaren bidez batzea.

-Hala da bai noski -esan zuen apaizak-, eta zure nagusia **ezkontze** hori, ahaleginak egingo ditut nik horretan. Patxi Ezkiaga

Zahar airea ari duelakotz hartzen herri hunek ere: haur eta gazte gehiagoren beharrez, **ezkontze** edo ekonomia bizipide eskasia batekin, etxe xahar hetsiak edo eroriak lekuka, jende biltzeak eta elizkizun hunkigarri ederrak bai, baina sortze baino hiltze gehiago ospatuz heietan bana beste. Herria

Akta zibilak (sortze, **ezkontze**, heriotze). Herria

ezkontzear *adlag* ezkontzeko zorian.

Baita **ezkontzear** diren andregai gazteek ere. Pello Zabala

Bera Hans izeneko alemaniar batekin **ezkontzear** egonagatik, nik gudarostea mihiaren puntaz dastatu izanagatik, ume hankagorri batzuk besterik ez ginen. Harkaitz Cano

Hainbat jokalarik ez diotelako selekzioaren deiari erantzun «**ezkontzear** edo min hartuta zeudela argudiatuz». Berria - Kirola

ezkontzearren *adlag* ezkontzeko.

Emakumeak **ezkontzearren** -Tibeteko lurralde bati buruz ari da-, segidan kontatuko dizuedan usadio bitxi bat dute. Patxi Zubizarreta

Jakob Rakelez maitemindu zen, eta esan zion Labani: -Zazpi urtez egingo dut lan zuretzat Rakel zure alaba gazteenarekin **ezkontzearren**. Elizen arteko biblia

Zer uste genuen?, erraza zela hantxe foken artean, uharte ahaztu hartan, bizitzen jartzeko prest egongo ziren emakumeak aurkitzea?, zer eta lau alprojarekin **ezkontzearren**? Juan Garzia

ezkonzale *iz* **

Hala ere, mendeku hartuko duk; **ezkonzaleak** hilko dituk, hala amarruz, nola aurrez aurre. Juan Kruz Igerabide

ezkooihal *iz* ezkozko oihala.

Bulegoan txokolatearen koloreko **ezkooihalarekin** tapizatutako sofa bat zegoen eta paretan oliopintura handi bat trenmakina bat irudikatzen zuena. Fernando Rey

ezkor **1** *izond* gauzak alde okerrenetik ikusteko edo hartzeko joera duena. ik **pesimista**.

Irudi **ezkor** hori areagotu egiten da sofista horietako batzuek politikan izan zuten esku hartzea aintzat hartzen denean. Askoren artean

Keinu **ezkor** batekin bete nuen esaldiaren etena. Joan Mari Irigoien

Uxa ditzagun pentsakizun triste eta **ezkor** hauek. Joxemari Iturralde

Ezkor samarra naiz, baina momentu historiko berezi batean gaude eta euskara orain lantzen eta erabiltzen ez badugu, iruditzen zait, galdu egingo dugula. Ana Urkiza

2 (adizlagun gisa)

Eskola sendatuko badugu, behar bezain **ezkor** jokatu beharra daukagu, nahitaez, diagnostikoa egitean. Joxerra Garzia

Hurrengo goizean **ezkor** itzarri zen, eta goiz gainera. Migel Angel Mintegi

Dena ilun ikusi dut, ilun eta **ezkor**, **ezkor** eta etsipenez betea. Patxi Zubizarreta

Uste dut denok ere antzeko pentsamendua erabili genuela, "Bidaia doan daukagu behintzat!" esan zuen gutariko norbaitek, **ezkor** baino ironiko. Koldo Izagirre

3 (izen gisa)

Ezkor bat Jainkoarengana joan zen lasaitasun bila. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde ezkorrak (4); **are ezkorrago** (3); **aurreikuspen ezkorrak** (4); **aurreikuspenak ezkorrak** (4); **aurreikuspenak ezkorrak dira** (4); **balantze ezkorra** (3); **balorazio ezkorra** (3); **eragin ezkorra** (5); **erantzun ezkorra** (3); **eta ezkor** (12); **eta ezkorra** (4); **eta ezkorrak** (3); **ezkor ageri** (5); **ezkor agertu** (14); **ezkor agertu zen** (8); **ezkor azaldu** (6); **ezkor azaldu zen** (4); **ezkor bat** (3); **ezkor da** (5); **ezkor eta** (6); **ezkor hori** (8); **ezkor horiek** (3); **ezkor ikusten** (4); **ezkor izatea** (3); **ezkor izateko** (3); **ezkor mintzatu** (7); **ezkor mintzatu zen** (5); **ezkor samarra** (6); **ezkorra da** (13); **ezkorra dela** (6); **ezkorra duela** (3); **ezkorra egin** (7); **ezkorra egin du** (3); **ezkorra egin zuen** (3); **ezkorra eta** (5); **ezkorra izan** (9); **ezkorra izatea** (4); **ezkorra naiz** (6); **ezkorrak dira** (9); **ezkorrak direla** (4); **ezkorrak egin** (3); **ezkorrak izan** (6); **ezkorrak izango** (3); **giro ezkorra** (5); **guzti guztiak ezkor** (3); **guztiak ezkor** (3); **hain ezkorra** (4); **hain ezkorra izan** (3); **ikuspegi ezkorra** (5); **irakurketa ezkorra** (4); **iritzi ezkorra** (4); **jarrera ezkor** (3); **jarrera ezkorra** (10); **nahiko ezkor** (4); **ondorio ezkorrak** (6); **oso ezkor** (3); **oso ezkorra** (7); **oso ezkorra naiz** (4); **zentzu ezkorrean** (3)

ezkorkeria *iz* ezkortasun gaitzesgarria.

Izan ere, **ezkorkeriak** itsututa nagoelako ez ditut nik ikusten eskolak dituen alderdi onak. Joxerra Garzia

ezkortasun *iz* ezkorra denaren nolakotasuna.

Ezkortasun hori ezin pareka daiteke, ordea, bere garaiko gizarteak nozitu zuen "mal du siècle" harekin. Josu Zabaleta

Ezkortasuna uxatzeko balioko du garaipenak, batik bat. Berria - Kirola

Jendeak ohi baino ilusio handiagoa zuen denboraldi honetan, eta normala da emaitza txarrek **ezkortasuna** eragitea. Berria - Kirola

Valéryren **ezkortasuna** eta Gibbonen baikortasuna biak dira emozioen arrazionalizazioak. Iñaki Mendiguren

Tovarren poesiak politikaren ikuspegitik begiratzen zion gizarteari, eta **ezkortasuna** zerion. Berria - Kultura

Eskeptizismoa eta **ezkortasun** sanoa, ez dira inon irakasten, ikasi ordea, nonahi. Patziku Perurena

Ez dut ulertzen zergatik bihurtu behar den **ezkortasuna**, antipatia eta edukazio eza, metodo eta bide. Hasier Etxeberria

Hutsegite horren ondoriozkoak ziren aitaren **ezkortasuna** eta gaitzespen erabatekoa. Xabier Olarra

Zifrak aldatuz doaz ematen dituenaren baikortasunaren edo **ezkortasunaren** arabera. Berria - Euskal Herria

Anton Tovar idazle galiziarra hil da, **'ezkortasunaren** poeta'. Berria - Kultura

Ezkortasunak gutxi iraun du burtsan, eta baikorkeria itzuli dela dirudi. Berria - Ekonomia

Ikaratzen ari zara, eta ez duzu nahi etsipenak, **ezkortasunak** eta koldarkeriak eraginik izan dezaten zure barruan. Rafa Egiguren

-Ez -esan zuen E-k bere ohizko **ezkortasunaz**. Isabel Arrigain

Eta egiten zuen galde grekoen alaitasun lasaiaz (Heiterkeit), eta **ezkortasunaz**, eta gaitzerako edo beltzerako ixuriaz (Pessimismus). Iñaki Segurola

Irabazitakoan euforian erortzea, eta galdutakoan **ezkortasunean** erortzea ez da normala. Berria - Kirola

Tom hautatuen artetik eroria zen, eta ematen zuen haren erortzeak euren buruarengan zuten uste ona astintzen zuela, euren bizitzarako zituzten aurreikuspenei **ezkortasunerako** atea irekitzen ziela. Oskar Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ildo horretan, giroan **ezkortasun** handia sumatzen da. Berria - Euskal Herria

Etsipen-kutsu bat zabaltzen zuen Barojak, oso berea zuen **ezkortasun** fatalista, ez 'dena berdin da' baina bai 'dena alferrik da' esango balu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain egoera prekario eta ilunetan, baikortasun dogmatikoa **ezkortasun** dogmatikoa bezain justifikaezina zen. Iñaki Mendiguren

Ondorengo egunetako gertakariek eta adierazpenek, ordea, nire ohiko **ezkortasunera** itzularazi naute. Berria - Euskal Herria

Badirudi badagoela halako **ezkortasun** bat, iruditzen zaigulako akaberan dagoela. Baina mendeak daramatza horrela, bukatzen. Berria - Harian

Nahiz eta zientziaren kornukopiak malthusiar **ezkortasuna** gaur arte gezurtatzeko moduko ugaritasuna eragin zuen, lurreko azaleraren bukagarritasun gaindiezinak muga bat jartzen dio gizakiaren jaki-horniduraren hazkunde progresiboari. Iñaki Mendiguren

Emoziozko erreakzioek, "viktoriar" baikortasuna eta "spengleriar" **ezkortasuna** bezalakoek, froga gisa ez zuten indarrik. Iñaki Mendiguren

3 (hitz elkartuetan)

Ondorio posible horien **ezkortasun** gradua katastrofikoa edo itzulezina izatea. Berria - Gaiak

Noizbait «baikor antropologikoa» dela esana du, baina baikortasun edo **ezkortasun** kontua ez dela zehaztu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Nagusitzen ari den **ezkortasun** olatutik onik ateratzeko, taldeak badu helduleku bat: hamabi jardunaldi geratzen direla, eta oraindik ere ez dela jaitsiera postuetan sartu. Berria - Kirola

---

ezkotasun *iz* hezetasuna.

-Hezedura edo umidura, **ezkotasuna**. Aireak berak **ezkotasun** eta umidurarik eramango ez balu, lur-azala orduan larrua baino lehorrago gelditukо litzateke. Pello Zabala

Ezkotasun usain gizi bat zuen gelak. Juan Garzia

---

ezkotsu *izond* hezetsua.

Emultsio bat izan ohi da ukendua: droga bat izaten du ingurune koipetsu edo **ezkotsu** batean sakabanatuta. Irene Aldasoro

---

ezkoztatu, ezkozta(tu), ezkoztatzen *(orobat **ezkoztu** g.er.)* **1** du *ad* zerbaiten gainaldean ezkozko geruza bat ezarri.

Gantzak gainez egiten zuen nonahi, garbitasuna gehiegizkoa izan arren, faiantzazko xaflen artetik isurtzen zen, lurreko baldosa gorriak **ezkoztatzen** zituen, sutegiaren burdinurtuari islatu grisaxka ematen zion, xehatzeko mahaiaren ertzak leuntzen zituen haritz bernizatuaren distira eta gardentasunarekin. Karlos Zabala

Hala ohiturik, gogorra zitzaion harrikoa egiten, jantziak garbitzen eta lisatzen eta etxeko pasabide luzeetako zurezko zola **ezkoztatzen** ikasi behar izatea. Xabier Montoia

Ezkoztatutako paperean bilduta. Mirentxu Larrañaga

2 (era burutua izenondo gisa)

Hartu eta altzoan jarri zuen, estalkia apur bat altxatu zion eta kirika egin zion lore-sorta **ezkoztatuari**. Mirentxu Larrañaga

Ed Thatcherrek lore-sorta bat zeraman paper **ezkoztatu** berde batean bilduta. Lopez de Arana

Zamau **ezkoztatuaren** gainean, bi plater ipintzen ditut; hirugiharra eta arrautzak frijitzen hasten naiz. Eskarne Mujika

Zoru **ezkoztatu** berrian josi nuen berriro begirada. Anjel Lertxundi

Pasilloan barrura astiro nindoan, zoru **ezkoztatuak** oin hotsa zabaltzen zuelako. Joseba Sarrionandia

Baldin tentamenduaren lur linburietan labaintzen eta linburtzen banintzen, nola oina zur **ezkoztatuaren** gainean, [...]. Joan Mari Irigoien

Ellen udako arropa jantzirik zuen jendeari beha zegoen, erdialdeko karratu **ezkoztuan** dantzan ari zen jendeari, alegia. Lopez de Arana

---

ezkoztu ik **ezkoztatu**.

---

ezkukatze **1** *iz* norbait edo zerbait agerritik kentzea, ikusten ez dela edo ikusten ez den tokian jartzea.

Jainkoaren **ezkutatze** hau Izkribu Santuetako pasarte askotan aipatzen da. Xabier Kintana

Badirudi **ezkutatze** hori landarediaren zikloaren adierazgarria dela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezkutatze horrek amorrarazi egiten nau, eta horregatik jarri dut neure argazkia azalean. Berria - Kultura

Gautzen ari zen, orbanka, zeruan mantxa koipetsu ilunak agertzen direnean bezala, eguzkiaren **ezkutatze** horizontalik gabe. Harkaitz Cano

Aparrak egiten duen **ezkutatze** lan sotilak berebiziko zirrara sortzen dizu, odolaldiak lehertzeko zorian jarri dizkizu zainak. Anjel Lertxundi

Uharteko Kontseiluak **ezkutatze** politika daramala salatu du *No Volem Autopista* herri plataformak. Berria - Mundua

Gobernuak esku-hartze auzietan izan duen jarrera, batez ere Finucaneren auzian, etengabeko ukatze, **ezkutatze** eta estaltze saioa izan da. Berria - Mundua

Zur eta lur nengoela **ezkutatze** aldera, esan nion: [...]. Juan Garzia

---

ezkur **1** *iz* aritzaren, artearen eta kideko zuhaitzen fruitua.

Arbolak ere xahartzen baitira, izanik ere haitzak, lehengoa eihartzen ari zela, beste bat landatua izan da, lehengoaren **ezkur** batetarik sortua. Herria

Santxo ere isilik era berean, **ezkurrak** jan eta jan. Patxi Ezkiaga

Eta **ezkurrak**, nire jaun, nik bidaliko diot lakari bat **ezkur**, banan-banan begi argiz eta garbiz ikustekoak. Patxi Ezkiaga

Gaztaren ondoan, lau bat dozena **ezkur**, eta, ur eta intxaur, beste horrenbeste. Patxi Ezkiaga

Wendyk mutikoarengana hurbildu zuen aurpegia, baina Peterrek **ezkur** baten txapeltxoa jarri zuen neskaren eskuan. Julen Gabiria

Etxera heldu zenean, garraiatutako urre guztia **ezkur** zen, eta Jean Biurreta itsu zegoen. Anjel Lertxundi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gauzen sortzaile den natura bera izan zen ereintzaren eta txertakuntzaren lehen adibide, haziek eta **ezkur** zaharrek ernamuin pilo berria ematen baitzuten zuhaitzaren orpoan. Xabier Amuriza

Nire gibelaldea lodia eta leuna zen, **ezkur** handi ikaragarri baten antzekoa. Joxan Elosegi

Astrakanezko beroki modu bat, azeri urdinezko txanoa zuena, zeinetik zilarrezko **ezkur** bat zegoen zintzilik. Matías Múgica

Eguraldia koska ttikidun badator, larreak irabazian berdetzen dira, azken gozatualdia aziendei emanez, eta **ezkur** denetarikoak zerri eta basurdeei mahai oparoan prestatuz. Pello Zabala

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gaztaina eta **ezkur** biltzea gaztetxoen eginkizun nagusiena bilakatu zen. Elena Touyarou

Haizea altxatu zen kukula gainetan, eta **ezkur**-gosea asetako uso saldo batek hegoak astindu zituen, nagiak atera ondoren lehengo adarretara bueltatzeko. Joxemari Urteaga

Poltsikoan berrogei duro zituztela, ekin zioten beren bide propioari: orain ontzi batzuk erreberrituz, orain **ezkur** zakukada bat ostuz, orain Portugalgo mugan kontrabando pixka bat eginez. Pablo Sastre

Haragi-jana bukatu zutenean, **ezkur** pila handi bat zabaldu zuten harako larru haien gainean, eta gazta-erdi bat ere atera zuten, kare-masaz egina balitz baino gogorragoa. Patxi Ezkiaga

Eder ematen zuen soinekoak argazkian, nigan baino askoz hobekiago inolaz ere, **ezkur**-urez eta lurrez lohitua baitzegoen orduan. Joxan Elosegi

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gurean, joan den urteko pago-**ezkur** emana (benetako bagilla amaibakoa izan zela esateko modukoa), basokaran edo patxaran aberastasuna (aurten, ordea, ia batez), beste zenbait fruiturekin ere aurten eskasia berezia izan da... Pello Zabala

---

ezkurazko *iz* **

Goiztiria argitzear denean, beheko errekondo eta ibarretan, aldiz, **ezkurazko** lainolanbro zapladak daude erreka-laino eta behelanbro multzotan pilatuta. Pello Zabala

Zenbat litro ur lurrintzen dira beroz uztail-abuztu sasoian, gero goizeko frexkuraren **ezkurazko** erreka-lainotan azaltzen diren lurrunak goizero? Pello Zabala

---

ezkurjale *iz* ezkurrak jaten dituen animalia.

Haritzaren etxean denak daude gustura: mokotarro, xagu, satain, sator, kattagorri, kattamuxar, eta hainbat **ezkurjale**... Pello Zabala

---

ezkurrar *izlag/iz* Ezkurrako biztanlea.

Ripaz eta Martinez errukitua, hala aditzen nion astronomiaz asko dakien **ezkurrar** bati baztarretik: [...]. Patziku Perurena

Orain hil berri den Nikolas Gastearena mutiltzar **ezkurrarra**, hamaika musaldi nerekin eta besterekin "Oyalde"n egina. Patziku Perurena

---

ezkurtxo *iz adkor* ezkur txikia.

Belar, gari eta besteon eraistetik, eraiaroan; pagoaren **ezkurtxoari** so, bagilla deneko horretan; eta maiatzaren errepika edo segida, maiatz berri edo arramaiatz den horretan. Pello Zabala

---

ezkuta *iz* erredola.

Halaxe izanik izan ere, arma zuriak eraman behar zituen, zaldun hasiberriari zegokionez, **ezkuta** arma-ikurrik gabe, harik eta bere kemenez irabazi arte. Patxi Ezkiaga

Ezkuta: *rodela,* bularraldea estaltzen zuen ezkutu borobila. Patxi Ezkiaga

---

ezkutaezin *(orobat **ezkuta ezin** g.er.) izond* ezin ezkutatuzkoa.

"Ez dut ulertzen", harritu natzaio, halako sufizientzia **ezkutaezin** batez. Anjel Lertxundi

Toteltasun **ezkutaezina** atera zuen handik. Fernando Morillo

Salvador Allendek arrasto **ezkutaezina** utzi zuen Patricio Guzmanengan. Berria - Kultura

Ortega-ren arrazismoa, **ezkutaezina** ukatzeke eta ezkutatzen ere saiatzeke ukaezina, nolabait bigarrentiartzeko bere inportantzian haren pentsamenduan. Joxe Azurmendi

Maitemintzeak ematen duen poztasuna **ezkutaezina** da. Mikel Hernandez Abaitua

Nahiago nuke bestelako aniztasunak ere hori bezain **ezkutaezinak** izango balira. Ana Urkiza

-Gogoratuko duzunez -azaldu zion Oppenheimerrek, irrika **ezkutaezinez**-, Manhattan Proiektuko buru izan nintzen 1945 urtera arte. Fernando Morillo

Makilajeak eta jantzi dotoreek moteldu arren, adinaren eta bizimodu bapoaren eragina nabaritzen zitzaizkion, azkenarena batez ere, **ezkutaezinezko** kilo batzuetan islatua. Migel Angel Mintegi

---

ezkutaketa **1** *iz* ezkutatzea.

Oraingoan, alferrik gabiltza **ezkutaketan**, sherifaren ordezkariek kontragiltzaz ireki baitute, eta arratsaldean etorri den emakume betaurrekodunari bidea zabalik utzi diote. Javi Cillero

Nork ziurta diezaguke guri eta gure **ezkutaketa** laguntzaileei bitarte horretan ezer gertatuko ez zaigunik? Josu Zabaleta

2 (jolasa)

Ezkutaketak filosofia oso bat biltzen du bere baitan, norberak besteak ikusi eta besteek norbera ez ikustearen gainean oinarritua. Pedro Alberdi

Ezkutaketara jolastea, esate baterako, ez da jolas egite soila, ez da jolas hutsa, edo -beste modura esanda- denbora pasarekin zerikusirik ez duen beste zerbait ere izan daiteke. Pedro Alberdi

3 umeen jolasa, ezkutatzean datzana, ezkutatu ez den bakarrak aurki ditzan.

Ezkutaketaren antzekoa, baina haren alderantzizko olgeta zen gerrikotan ibiltzea: bakar bat denen bila ibili ordez, denak ziren batek ostendutako gerrikoaren bilatzaile; norbaitek aurkitutakoan, ziztu bizian irten behar zuten besteek hasierako lekura itzuli arte, honek atzetik gerrikoaz jotzen zituela. Urtzi Urrutikoeetxea

Umetako lekuek lotu egiten dute, Justo, denok ditugu gogoan korrika eta **ezkutaketan** ibilitako txoko eta bazterrak. Joxemari Urteaga

Umeak **ezkutaketan** jolasten ziren han, intxaurrondozko armairu altuaren barruan eta ama Chantemesseren ohe eskergaren azpian. Karlos Zabala

Koruko eskailera ilun-estuetan gora eta behera ibiltzea, zutabe atzeetan gorde eta **ezkutaketan** jolastea, ur bedeinkatuarekin zipriztinka jostatzea **Ezkutaketan** ibiltzeko ez zegoen toki hoberik herri osoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezkutaketan egiten dute irakurlearekin eta, gure idazlearen kasuan, gurekin. Joxean Agirre

Errejistro-zerrendan emaitzak lerroka luzatu ahala, lan errepikakorraren neke-asperdura poz-pilpira bilakatuz zihoan, alegia, haurretan **ezkutaketan** jolastean, kontrarioa hesi atzean baldarki kokorikaturik harrapatzean bezala. Juan Garzia

Beharrik ere ez, laster galduko baikenuen interesa **ezkutaketa** jolas antzu haietan. Pedro Alberdi

Madre hilik ikusi duzu, Pedrito, ez zaitez ibili zortearekin **ezkutaketan**. Jon Maia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta ezkutaketan (3)

---

ezkutaldi *iz* ezkutatze aldia.

Hasieran denboraldi bateko **ezkutaldia** zena, luzatzen hasiko da. Joxean Agirre

Noiz arte iraungo ote du **ezkutaldiak**. Iñaki Iñurrieta

Eguzkiak ez du ia **ezkutaldirik** izanen, gauerdian uraren muga ozta ozta ukitu eta berriro hasiko da igotzen. Joseba Sarrionandia

---

ezkutaleku *iz* ezkutatzeko lekua; norbait edo zerbait eskutatzen den tokia. ik**ezkutatoki**.

Holandan erakunde klandestino asko dago, "Holanda libre" bezalakoak, ezkutatuta daudenentzat nortasun agiriak faltsutu edo dirua ematen dutenak, **ezkutalekuak** prestatzen dituztenak. Josu Zabaleta

Zenbat jende ote dago, gero, **ezkutalekuren** batean babesturik! Josu Zabaleta

Batzuetan, gauez, bide ondoko **ezkutalekuren** batean kikildu eta urduri erdi lotan zeuden bitartean, oin ugariren edo krudelki ezproinaturiko zaldiren baten lauhazka arinaren zarata edo zurrumurruak entzuten zituzten. Agustin Otsoa

Ezkutaleku batetik haien arteko elkarrizketak entzun, eta Mireia berehala jabetu zen bere ustezko salbatzailearen nortasunaz eta iruzurraz. Martin Anso

Klandestinitatea, **ezkutalekuak** garai batean aitaren zapatilak berogailuaren aurrean jartzea bezain gauza arrunta bilakatu dira. Josu Zabaleta

Aitak bulegoa zuen eraikinean zegoen **ezkutalekua**. Josu Zabaleta

Lapurra lapurtutakoa **ezkutalekura** eraman baino lehen harrapatzen zutenean, horri *ageriko lapurreta* deitzen zioten erromatarrek Egun batzuk geroago, hura erabili behar nuen unea gertu zegoela, **ezkutalekura** itzuli nintzen, eta berehala jabetu nintzen lurra mugitua zegoela. Iñaki Iñurrieta

Jainkoak egiaz babestu gintuen; egizu kontu: polizia **ezkutalekurako** atearen aurrean, eskailera buruko argia pizturik, eta hala ere gure **ezkutalekua** aurkitu ez! Josu Zabaleta

Gizon-emakume horiek zahar bat daukate hor barruan lotuta, sekuestratuta, eta orain berarekin zer egin ari dira eztabaidatzen, beren **ezkutalekua** deskubritu duenez gero. Xabier Mendiguren Elizegi

-Dena ondo doa -esan zuen Johnek, **ezkutalekutik** irtenda-. Julen Gabiria

Nire liburuak kutxako **ezkutalekuan** segitzen zuen jakitera. Edorta Jimenez

Argazkia gordetzea erabaki nuen, eta bi arrazoi nagusi zirela medio, **ezkutalekutzat** Préverten *Paroles* iruditu zitzaidan aproposena. Ramon Saizarbitoria

Tentsioa une gorenera ailegatu zen hondeamakinak solidarioen aterpe eta **ezkutaleku** ziren etxeak ukitzen eta astintzen hasi zirenean. Edurne Elizondo

Armada horiek **ezkutaleku** oso onak dira gaur egun ere torturatzaile, bortxatzaile, hiltzaileentzat. Jokin Urain

Buztinezko zoruaren azpian Prostatasen edo agian Txominen derbirako sarreren **ezkutaleku** sekretua zegoen. Jon Alonso

Ezkutaleku polita zen hura; artean kanpotik argitasun pittin bat bazetorren arren, nahiko iluna eta gordea irudi zuen. Edorta Jimenez

Erasoaren helburua zela Musab al Zarkauiren ustezko **ezkutaleku** bat suntsitzea. Berria - Mundua

Ezkutaleku gaietan isilik egoten jakin dezala eskatzen da, jakina. Josu Zabaleta

Erasoan babesleku eta arma **ezkutalekuak** suntsitu zituzten. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bere ezkutalekutik (4); **beste ezkutaleku** (3); **eta ezkutaleku** (3); **ezkutaleku bat** (5); **ezkutalekuren batean** (3); **ezkutalekurik ez** (3); **ezkutalekutik atera** (4)

---

ezkutarazi, ezkutaraz(i), ezkutarazten du *ad* ezkutatzera behartu.

Ezkutarazi egin zuen ehiza gogora ekartzen zuen guztia: armak, kartutxo-zorroak, antzinako geziak, hegaztien buru disekatuak, oreinen adajeak, den-dena. Xabier Olarra

Bere sodio-lanparen argiarekin parekatu zuen, berehala **ezkutarazten** baititu kolorea eta ñabardura xumeak. arrastirian, landareak oro ernarazi eta gizon-emakumeak oro lastozko teilatuetako etxola mixerableetan **ezkutarazten** zituen zaparrada jausi eta urgaina arreagotu ostean. Xabier Olarra

Oharteman dituzu, arratsapalean, Paris inguruko gure bide handietan, karrozaren lauhazkak zure aitzinean jarraika agerrarazten eta **ezkutarazten** dituen zumar guztien soslai izugarriak? Koldo Izagirre

Zeuen erruek ezarri dute hesia zuen eta Jainkoaren artean; zeuen bekatuek **ezkutarazi** diote aurpegia. Elizen arteko biblia

Mendebaldeko konbentzioen arabera, aurpegia norbanakoaren nortasunaren isla zuzena da, eta pertsona horien nortasuna da, hain zuzen, Kellak ikusleari **ezkutarazten** diona. Berria - Kultura

---

ezkutari 1 *iz* jaunaren ezkutua zeraman zerbitzaria; sari baten truke bere jaunari zerbitzu jakin batzuk eskaintzen zizkion laguntzailea.

Horra zen Lüküzeko jauna bera ere, bere seme, **ezkutari** eta peoiekin batean, hamabi urte lehenagoko azpikeria ahantzarazi nahirik. Aingeru Epaltza

Ezkutaria zihoakion aurretik. Jose Antonio Mujika

Ezkutari bat lagun harturik, zaldi gainera igo eta Pugliako lurraldera abiatu zen. Askoren artean

Lancelot, amorruz beterik, zaldi gainera igo zen berriro, **ezkutari** bati lantza labur bat kendu, eta Börsengana abiatu zen. Juan Kruz Igerabide

Ezkutariak ezkutua hartu zuen; gainera, Lancelotek urre eta zilar asko eman zion elizgizonentzat. Juan Kruz Igerabide

Ezkutariak ezpata sartu eta hil egin zuen. Elizen arteko biblia

Gau ilunean, inork jakin gaberik, zaldunen lehiara abiatu zen Lancelot Kamelotetik, bere **ezkutariarekin**. Juan Kruz Igerabide

Albiste eman zion bere **ezkutari** Santxori zein egun eta zein ordu erabakiak zeuzkan, bidean abiatzeko. Patxi Ezkiaga

Erregearen **ezkutari** zen Pekahek, Ramaliasen semeak, azpilana egin zuen Pekahiasen kontra. Elizen arteko biblia

Atsegin handiz hartu zuen Saulek, eta bere **ezkutari** egin. Elizen arteko biblia

Honelako eta holatsuko eskaintzak zirela bide, utzi zituen Santxo Panzak (izen horixe zuen nekazariak) bere emazte eta seme-alabak, eta bere auzoaren **ezkutaritzat** jarri zen. Patxi Ezkiaga

Ez biezaio nire diruen konturik Santxo Panzari eskatu; nire eroaldian **ezkutaritzat** hartu nuelako dauzka eta hartu-eman batzuk eta kontutxo batzuk izanak ditugu hark eta biok gure artean; ez bada diru-konturik batere eskatu. Patxi Ezkiaga

2 (izenondoekin)

Bere ondoan zaukala asto bizkarrez zoan Santxo Panza **ezkutari** leiala. Herria

Henri Coiffier de Ruzé, Cinq-Mars-eko markesa (1620-1642), Frantziako **ezkutari** handia, Richelieuren begikoa izan zen eta Luis XIII.aren kutuna. Juan Martin Elexpuru

Ni ez naiz-eta jauregitarra, aitzurlari baten alaba gaixo bat baizik eta **ezkutari** ibiltari baten emaztea, eta ez gobernadore batena. Patxi Ezkiaga

Aski beteak zeuden etxekoandrearen, ilobaren eta Santxo Panza **ezkutari** zintzoaren begiak, eta, berri hauen bultzadaz, bertan behera lehertu ziren, begietatik malkoka eta

barren-barrendik zotin-hasperenka. Patxi Ezkiaga

3 (hitz elkartuetan)

Heroiak, bere helburua betetzeko, mila eta bat arrisku gainditu beharko ditu, **ezkutari** lana egingo dion belzkote gihartsu baten laguntzaz. Jon Arretxe

Zaldun-**ezkutariei** laguntzera etortzeko agindu zien dukeak bere ehiztariei. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere ezkutari (6); **bere ezkutaria** (4); **bere ezkutariari** (12); **erregearen ezkutaria** (3); **eta ezkutari** (4); **eta ezkutaria** (3); **eta ezkutariak** (3); **ezkutari bat** (5); **ezkutari bati** (3); **ezkutari eta** (5); **nire ezkutaria** (4); **zion bere ezkutariari** (6)

---

ezkutaritza *iz* ezkutariaren lanbidea.

Azkenik bada, esan eta esan, arren eta arren, agindu eta eskaini, baserritar gizajoak erabakia hartu zuen, harekin joan eta **ezkutaritzan** zerbitzatuko ziola. Patxi Ezkiaga

---

ezkutatoki *iz* ezkutalekua.

Bere **ezkutatokian** zegoelarik, tren beltz baten hotsa entzuten zuen, astelehenez etorri eta asteartez berriro bazihoala, kaio mutur-luze, kaio handi, kaio oihulariak atzetik zituela. Felipe Juaristi

---

ezkutatu, ezkuta, ezkutatzen **1** du *ad* norbait edo zerbait agerritik kendu, ikusten ez dela edo ikusten ez den tokian jarri.

Intzirika aldendu nintzen ertzetik, eta, negar saminez, esku ahurretan **ezkutatu** nuen aurpegia. Koro Navarro

Burua maindireen artean **ezkutatu** nahiko nuke, berriro aire garbia usaindu ahal izango dugun unean gehiago ez pentsatzeko. Josu Zabaleta

Armadak nahiago du kriminalak **ezkutatu**, legez kanpoko zenbait kasu ikertu baino. Berria - Harian

Japoniako zentral nuklearretan gaur artean izan diren istripuetan, eta baita herenegungoan ere, enpresek eta Gobernuko agintariek informazioa **ezkutatu** dutela salatu zuten atzo talde ekologistek. Berria - Gaiak

Erasoan, berriz, Indautxuko entrenatzaileak ez du **ezkutatu** non bilatu behar duten kataluniarren zuloa: [...]. Berria - Kirola

Taldeak salatu du Mirandak **ezkutatu** duela kontratu nagusiaz gain bestelako obrena badagoela. Berria - Euskal Herria

Era berean, CCOOk salatu zuen aurtengo lan istripuen inguruko estatistika ofizialik oraindik ez dela kaleratu: «Osalanek datuak **ezkutatu** nahi ditu». Berria - Ekonomia

Norbere izana eta munduaren omena irabazteko asko erakutsi behar da eta asko **ezkutatu**. Iñaki Segurola

Ehizalditik itzulitakoan, Xariarrek bizkorrago eta adoretsuago ikusi zuen anaia, eta ezin izan zuen bere jakin-gosea **ezkutatu**. Patxi Zubizarreta

Iragana goraipatuz, ezadostasunak **ezkutatu**. Berria - Mundua

Bi eskuez **ezkutatu** zuen aurpegia gero. Inazio Mujika Iraola

Esaera leundu, ez dut bertzerik egin ahal izan; eta ez dizut ikustera utzi, sinets nazakezu, ezin **ezkuta** nezakeena baizik. Jon Muñoz

Olatz poza ezin **ezkutaturik** zegoen. Harkaitz Cano

Berak egin zion galdera, ironia ezin **ezkutaturik**: [...]. Koldo Izagirre

Niri ezin didazu deus **ezkutatu**, ederki dakizu hori. Hasier Etxeberria

Egun sargori baten ondoren, arbel koloreko ekaitz eskerga batek **ezkutatua** zuen zerua. Juan Garzia

Antoniok bere poltsan zeramatzan, izan ere, bere etxearen sal-erositik eskuetaratu diruak, baita eltzeitsu batean **ezkutaturik** zituen bizitza osoko irabaziak ere, poltsa batean gorde genituenak eltzeitsua hautsi ondoren. Joan Mari Irigoien

Gaur Eskalatzaileak hire burua nahi dik -xuxurlatu zidan, ezin **ezkutaturiko** pozaz. Aingeru Epaltza

Arropen artean bazuen pistola bat **ezkutatuta**. Pello Salaburu

Makillajeak nekez **ezkuta** zitzakeen zimurrak. Lutxo Egia

Arantzen berri ere ematen hasi beharra dago, ordea, Oteizari buruzko ikuspegi mitomanoak **ezkuta** ez dezan haren ekarriaren benetako aurpegia. Anjel Lertxundi

Ziur nago gerra bukatzen denean harrituriik jakingo dugula zenbat jende jator izan den Holandan beren etxean juduak edo ihes egitera beharturik zeuden kristauak ere, diruz ordainduta edo ordaindu gabe, **ezkutatu** dituena. Josu Zabaleta

Ezin izan zioten **ezkutatu** gertatutakoa. Jon Muñoz

Egiteko bat, bakarra, geratzen zitzaidan bizitzan: urtetan **ezkutatu** zidatena argitu behar zidaten gurasoek; eta baita hala jokatu izanaren arrazoia ere. Anjel Lertxundi

Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei **ezkutatu** dizkiezulako eta jende xumeari agertu.

Minduta ahoskatu ditu azken hitzok ingeniariak, frustrazioa **ezkutatu** ezinik. Jon Arretxe

Poemak topatu zituenean, aurpegia okertu zuen ironiaz, ezustekoa ere **ezkutatu** gabe. Juan Kruz Igerabide

Kopan ardoa isuri, tragoxka bat edan, eztultxo bat egin eta, ondoren, neure iritzia azaldu nion, aski leundua, baina horrore bat iruditu zitzaidala **ezkutatu** gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

Independentea nintzen, eta aske jokatzen nuen, nire abertzaletasuna **ezkutatu** gabe. Berria - Euskal Herria

Ez zuen barruan zer gertatzen zen inork jakiterik nahi, eta, onaren mesedetan hobea zuhurki **ezkutatuz**, Jainkoari bakarrik eskatzen zion aholkua bere asmo santuaz. Askoren artean

Gülbahar ikustean, begitartean alaitasun paregabea piztu zitzaion, ezin **ezkutatuzko** bozkarioa, neskari oharkabean pasatu ez zitzaiona. Fernando Rey

Baikal Finance Group delakoa, beraz, aurpegia **ezkutatu** nahi duen izenemailea bada, nor dago atzean? Berria - Ekonomia

Kalesa barruan kolore zurbil, masaila hezurtsu eta begirada galduko neska bat zegoen, lepoko zuridun soineko beltz bat jantzirik, eta urkamendi gainean ikusten ari zenaren ikara **ezkutatu** ezinik. Anjel Lertxundi

Autoreek normalean **ezkutatu** egiten dutelako beren sorkuntza lanaren nekea. Josu Zabaleta

Gizona, orduan, bere sentimenduak mozorrotzen saiatzen da, eta hauek besteei **ezkutatu** beharraren **ezkutatu** beharrez, azkenerako beren buruari ere **ezkutatzen** dizkio. Juan Martin Elexpuru

Azken errieta maitakorren unea da batzuentzat, azken besarkada isilarena beste zenbaitentzat; malko iheskorren bat **ezkutatu** ezina, barruko hunkidura algaraka disimulatu nahia, muxu bat, beste bat, beste bat, azkeneko muxua. Xabier Mendiguren Elizegi

Torturaren gaian PPk ez duela zer **ezkutatu** dio Mayor Orejak. Berria - Euskal Herria

Nik ez dut inoiz nire homosexualitatea **ezkutatu**. Berria - Euskal Herria

2 (da aditz gisa)

Ni, **ezkutatu** egin nintzen; gero, ordea, erregeak nire berri bazuela eta ni hil nahian zebilela jakin nuenean, beldurtu eta ihesi joan nintzen. Jose Antonio Mujika

Beti izan dut bizitza publikoa, inoiz ez naiz **ezkutatu**. Berria - Euskal Herria

Eguzkia pinu baten atzean **ezkutatu** zen, laban eginez. Karlos Linazasoro

Eltxoak **ezkutatu** egiten dira lehendabiziko izotzarekin. Patxi Zubizarreta

Ferrya badiaren barren batean **ezkutatu** zen. Bernardo Atxaga

Harkaitz baten atzean **ezkutatu** zen, zauriak lotzeko. Juan Kruz Igerabide

Gizona ate atzean **ezkutatu** zen, kontu handiz itxi zuen, eta handik pixka batera berriro azaldu zen, kafe, azukre eta gaileta zorro bana ekarriz. Josu Zabaleta

Eguzkia **ezkutatua** zen, ordea. Pedro Alberdi

Gizona sukaldera **ezkutatu** zen. Unai Iturriaga

Eta bazihoan, bazihoan, eta nik bistarekin segitu nion, karrika batean **ezkutatu** zen arte. Joan Mari Irigoien

Ezkutatu ... Non **ezkutatuko** ote ginen? Josu Zabaleta

Laster **ezkutatu** zen gizenkotea bihurgune batean, ikatzezko lokomotora zaharrak tuneletan ezkutatzen ziren bezala: baldar eta zaratatsu. Berria - Kultura

Belar luzeen artean **ezkutatu** ginen, eta hantxe geratu ginen kuzkurtuta, erne, adartxo bat noiz hautsiko, edo noiz zabalduko sasidi ezkutua. Koro Navarro

Handik alde egin eta Adulamgo leizean **ezkutatu** zen David. Elizen arteko biblia

Zoaz eta **ezkuta** zaitez alditxo batean, nire haserrea igaro arte. Askoren artean

Baina hori da errealitatea, eta ezin da **ezkutatu**. Berria - Euskal Herria

Ezin daiteke **ezkuta** mendi gainean dagoen hiria. Elizen arteko biblia

Ezkutalekuko hormen atzean **ezkutatu** ziren denak. Josu Zabaleta

Elurrak azal gogorra osatuko du ur barearen gainean, itsasoa izotzezko oskolaren azpian **ezkutatuko** da. Joseba Sarrionandia

Oraintxe bertan **ezkutatuko** nauk hire begien bistatik. Juan Luis Zabala

Van Daandarrak ere gurekin batera **ezkutatuko** dira; zazpi izango gara guztira. Josu Zabaleta

Ontzi hartan zegoen **ezkutaturik**, inondik ere. Josu Zabaleta

Rakel goiztiar ibiliko zela sumaturik, ni ere goiz jaiki, eta hotelaren pareko parkean **ezkutaturik** itxaron diot. Patxi Zubizarreta

Bi judu zituen bere etxean **ezkutaturik**. Josu Zabaleta

Stephenen autismoaren atzean **ezkutaturik** zegoen pertsona ikustea espero nuen, haren gogamenaz jabetzea. Xabier Olarra

Katarroaren birusa hilabeteetan egon daiteke gizakien gorputzean **ezkutaturik**. Berria - Gaiak

Patriotismoaren izen finaren pean **ezkutaturiko** erkidego jainkotuaren gurtza pagano primitiboa. Iñaki Mendiguren

Jainkoaren neurrigabetasunean **ezkutaturik**, haren Probidentzia Jainkozkoaren atzean, non nik ezin baihaut iritsi ez ikusi, eta nora ez baitira heltzen nire hitzak. Juan Garzia

Haien atzean, erdi **ezkutaturik**, gaur dekadentetzat dauzkagun frantses-estiloko txalet aspaldikoak, beren harrizko fatxadaz eta arbelezko teilatuaz. Anjel Lertxundi

Ez dago kuidadorik: zinpeko zaindaria ordu hauetan goiko pisuetan dabil, eta bera ondo **ezkutatuta** egon da komunetan, eraikineko argi guztiak itzali artean. Iban Zaldua

Auto batean **ezkutatuta** zegoen bonba batek eztanda egin zuen, hain zuzen ere, polizia auto bat albotik igarotzen ari zenean. Berria - Mundua

Halere, **ezkutatuta** zegoelako sentsazioa ez zait ezabatu. Bernardo Atxaga

Argi dago **ezkutatuta** dagoela, eta ihesi dabilela. Berria - Mundua

Burdin hesien atzean **ezkutatutako** sarraskia. Berria - Kultura

Lehergailuak motxiletan **ezkutatuak** zeuden, eta motxilak, berriz, trenetan. Berria - Harian

Eguzkia **ezkutatu** egin zen, eta santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen. Elizen arteko biblia

Bisitaria **ezkutatu** egin zen istantean. Bernardo Atxaga

Heretikoen makurkeria nahasia gelditzen zen eta Elizaren fedea goratua, poztu egiten ziren fededunak eta **ezkutatu** heretikoak. Askoren artean

Helios erabat **ezkutatu** zenean, urertzean etzan ginen, lotarako. Juan Kruz Igerabide

Baina karel ostean **ezkutatu** zitzaigun. Koldo Izagirre

Berak mugitzekorik ere egin baino lehen, Hispano-Suiza bistatik **ezkutatu** zitzaion. Bernardo Atxaga

Ederra zegoen benetan, arestian **ezkutatu** berria zen eguzki ile-gorriztaren pare. Juan Kruz Igerabide

Egia bera askotan halako moduan egoten da **ezkutatua**, non, zenbat eta gehiago bilatu, orduan eta zailago izaten baita aurkitzen. Koro Navarro

Haren asmoak deseginen zaizkio eta bere burua gobernatzeko artea **ezkutatuko** zaio. Xabier Kintana

3 (era burutua izenondo gisa)

Judu **ezkutatuen** eta diru beltzaren artean, zer axola dio, bada, irrati klandestino batek. Josu Zabaleta

Begira zer asmatu duten Borks jaunari, Opekta Konpainiaren ordezkari eta gure ezagun eta gure ondasun **ezkutatu** batzuen edukitzaileari gure aldetik mezu bat igortzeko. Josu Zabaleta

Ados ginenez, gure lagun eta ezagunen zerrenda aztertu dugu **ezkutatuon** familiarekin erraz egokituko den ezkongaberen baten edo bakarrik bizi denen baten bila. Josu Zabaleta

Miepek eta Kuglerrek daramate guk eta gainerako **ezkutatuek** eragiten diegun kargaren zatirik handiena. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

artean ezkutatu (26); **artean ezkutatu zen** (4); **artean ezkutatu zuen** (7); **artean ezkutatua** (4); **atzean ezkutatu** (55); **atzean ezkutatu nintzen** (4); **atzean ezkutatu zen** (16); **atzean ezkutatu ziren** (7); **atzean ezkutatua** (5); **aurpegia ezkutatu** (13); **azpian ezkutatu** (16); **azpian ezkutatu nuen** (4); **azpian ezkutatuko** (4); **baina ezkutatu** (5); **baina ezkutatu egin** (4); **barruan ezkutatu** (7); **bat ezkutatu** (10); **batean ezkutatu** (40); **batean ezkutatu zen** (9); **batean ezkutatua** (5); **baten atzean ezkutatu** (18); **batzuk ezkutatu** (5); **beldurra ezkutatu** (4); **berehala ezkutatu** (5); **berriro ezkutatu** (6); **bertan ezkutatu** (7); **bistatik ezkutatu** (8); **burua ezkutatu** (7); **da ezkutatu** (8); **datuak ezkutatu** (6); **du ezkutatu** (15); **dute ezkutatu** (4); **edo ezkutatu** (9); **egia ezkutatu** (6); **eguzkia ezkutatu** (15); **erabat ezkutatu** (7); **erdi ezkutatua** (4); **ere ezkutatu** (14); **errealitatea ezkutatu** (5); **esku artean ezkutatu** (4); **eta eguzkia ezkutatu** (4); **eta ezkutatu** (37); **eta ezkutatu egin** (8); **eta ezkutatu egiten** (11); **etxean ezkutatu** (8); **ez du ezkutatu** (9); **ez ezkutatu** (11); **ez zuen ezkutatu** (10); **ezer ezkutatu** (10); **ezer ezkutatuko** (4); **ezin da ezkutatu** (6); **ezin du ezkutatu** (6); **ezin ezkutatu** (5); **ezinegona ezkutatu** (4); **ezkutatu ahal** (11); **ezkutatu ahal izan** (5); **ezkutatu arte** (4); **ezkutatu aurretik** (5); **ezkutatu baino** (4); **ezkutatu behar** (52); **ezkutatu behar izan** (10); **ezkutatu beharra** (6); **ezkutatu beharrean** (6); **ezkutatu da** (4); **ezkutatu den** (7); **ezkutatu du** (13); **ezkutatu edo** (6); **ezkutatu egin** (94); **ezkutatu egin behar** (9); **ezkutatu egin nahi** (7); **ezkutatu egin zen** (17); **ezkutatu egin zion** (4); **ezkutatu egin ziren** (5); **ezkutatu egin zuen** (5); **ezkutatu egingo** (7); **ezkutatu egiten** (60); **ezkutatu egiten da** (8); **ezkutatu egiten dira** (6); **ezkutatu egiten du** (6); **ezkutatu egiten zuen** (4); **ezkutatu ere** (5); **ezkutatu eta** (71); **ezkutatu ez** (7); **ezkutatu ezin** (6); **ezkutatu ezinik** (26); **ezkutatu gabe** (32); **ezkutatu ginen** (10); **ezkutatu gura** (4); **ezkutatu izan** (6); **ezkutatu izana** (15); **ezkutatu izana egotzi** (4); **ezkutatu izana leporatu** (4); **ezkutatu nahi** (73); **ezkutatu nahi ditu** (5); **ezkutatu nahi dute** (4); **ezkutatu nahi izan** (11); **ezkutatu nahian** (22); **ezkutatu nahiko** (5); **ezkutatu nahirik** (5); **ezkutatu nintzen** (13); **ezkutatu nituen** (5); **ezkutatu nuen** (17); **ezkutatu ohi** (4); **ezkutatu ote** (7); **ezkutatu zara** (6); **ezkutatu zen** (98); **ezkutatu zen arte** (8); **ezkutatu zenean** (7); **ezkutatu zinen** (4); **ezkutatu ziren** (43); **ezkutatu ziren arte** (4); **ezkutatu zituen** (20); **ezkutatu zituzten** (6); **ezkutatu zuela** (5); **ezkutatu zuen** (44); **ezkutatu zuen aurpegia** (5); **ezkutatu zuten** (10); **ezkutatua zegoen** (4); **ezkutatua zen** (10); **ezkutatuko da** (4); **ezkutatuko zen** (6); **frogak ezkutatu** (5); **gehiago ezkutatu** (4); **gelan ezkutatu** (5); **guztiak ezkutatu** (5); **han ezkutatu** (5); **haren atzean ezkutatu** (5); **harridura ezkutatu** (5); **hartan ezkutatu** (4); **hemen ezkutatu** (6); **hori ezkutatu** (10); **hura ezkutatu** (5); **informazioa ezkutatu** (13); **luzaroan ezkutatu** (4); **nola ezkutatu** (4); **non ezkutatu** (26); **non ezkutatu ote** (4); **ostean ezkutatu** (6); **poza ezkutatu** (4); **sentimenduak ezkutatu** (4); **zer ezkutatu** (5); **zerbait ezkutatu** (6); **zergatik ezkutatu** (9); **zuen ezkutatu** (15)

artean ezkutaturik (17); **artean ezkutaturiko** (4); **artean ezkutatuta** (10); **atzean ezkutaturik** (17); **atzean ezkutatuta** (15); **atzean ezkutatutako** (6); **atzean ezkutatuz** (4); **azpian ezkutaturik** (7); **azpian ezkutatuta** (12); **barruan ezkutaturik** (4); **bat ezkutatuta** (4); **batean ezkutaturik** (6); **batean ezkutatuta** (20); **batean ezkutatuta zegoen** (4); **baten atzean ezkutatuta** (4); **bazterrean ezkutatutako** (5); **dago ezkutatuta** (4); **erdi ezkutaturik** (14); **erdi ezkutatuta** (9); **ezin ezkutaturik** (5); **ezkutaturik egon** (8); **ezkutaturik eta** (5); **ezkutaturik zegoen** (15); **ezkutaturik zeuden** (4); **ezkutatuta dago** (5); **ezkutatuta dagoen** (9); **ezkutatuta dauden** (8); **ezkutatuta egon** (23); **ezkutatuta egon behar** (4); **ezkutatuta eta** (6); **ezkutatuta zegoen** (14); **ezkutatuta zeuden** (8); **ezkutatuta zeukan** (4); **kale bazterrean ezkutatutako** (4); **zegoen ezkutaturik** (4); **zegoen ezkutatuta** (5); **zer ezkutaturik** (6)

artean ezkutatzen (14); **asko ezkutatzen** (7); **atzean ezkutatzeko** (4); **atzean ezkutatzen** (39); **atzean ezkutatzen den** (6); **atzean ezkutatzen zen** (5); **atzetik ezkutatzen** (5); **aurpegia ezkutatzen** (4); **azpian ezkutatzen** (12); **baitan ezkutatzen** (5); **barrena ezkutatzen** (5); **barruan ezkutatzen** (4); **bat ezkutatzeko** (5); **bat ezkutatzen** (36); **bat ezkutatzen da** (5); **bat ezkutatzen zuela** (6); **batean ezkutatzeko** (4); **batean ezkutatzen** (7); **batek ezkutatzen** (4); **batez ezkutatzen** (4); **berehala ezkutatzen** (4); **burua ezkutatzeko** (4); **buruari ezkutatzen** (4); **da ezkutatzen** (6); **du ezkutatzen** (20); **edo ezkutatzen** (4); **egia ezkutatzen** (5); **eguzkia ezkutatzen** (13); **eguzkia ezkutatzen ari** (8); **erdi ezkutatzen** (5); **ere ezkutatzen** (6); **errealitatea ezkutatzen** (6); **eta ezkutatzeko** (7); **eta ezkutatzen** (18); **eta ezkutatzera** (4); **ez da ezkutatzen** (4); **ez du ezkutatzen** (20); **ez ezkutatzeko** (11); **ez zuen ezkutatzen** (6); **ezer ezkutatzen** (5); **ezkutatzea da** (4); **ezkutatzea egotzi** (4); **ezkutatzea erabaki** (5); **ezkutatzea erabaki zuen** (4); **ezkutatzea eta** (9); **ezkutatzea leporatu** (9); **ezkutatzea leporatu zion** (5); **ezkutatzeko agindu** (5); **ezkutatzeko ahaleginetan** (4); **ezkutatzeko ahaleginik** (5); **ezkutatzeko asmorik** (7); **ezkutatzeko erabiltzen** (8); **ezkutatzeko eta** (4); **ezkutatzeko ezer** (5); **ezkutatzeko ezer ez** (4); **ezkutatzeko modua** (4); **ezkutatzen ahalegindu** (4); **ezkutatzen ahalegintzen** (6); **ezkutatzen ari** (45); **ezkutatzen ari dira** (4); **ezkutatzen ari direla** (7); **ezkutatzen ari zela** (6); **ezkutatzen ari zen** (11); **ezkutatzen da** (44); **ezkutatzen dela** (8); **ezkutatzen den** (43); **ezkutatzen dena** (8); **ezkutatzen denean** (4); **ezkutatzen dira** (21); **ezkutatzen direla** (9); **ezkutatzen diren** (14); **ezkutatzen direnak** (4); **ezkutatzen ditu** (11); **ezkutatzen dituen** (9); **ezkutatzen dituzte** (4); **ezkutatzen dituztela** (4); **ezkutatzen dituzten** (8); **ezkutatzen du** (27); **ezkutatzen duela** (7); **ezkutatzen duen** (23); **ezkutatzen duena** (6); **ezkutatzen dute** (9); **ezkutatzen dutela** (4); **ezkutatzen duten** (14); **ezkutatzen dutena** (4); **ezkutatzen duzu** (5); **ezkutatzen edo** (4); **ezkutatzen ere** (5); **ezkutatzen eta** (9); **ezkutatzen ez** (13); **ezkutatzen ibili** (9); **ezkutatzen lagundu** (5); **ezkutatzen naiz** (4); **ezkutatzen nuen** (7); **ezkutatzen omen** (4); **ezkutatzen ote** (7); **ezkutatzen ote zuten** (4); **ezkutatzen saiatu** (17); **ezkutatzen saiatu zen** (7); **ezkutatzen saiatzea** (7); **ezkutatzen saiatzen** (22); **ezkutatzen saiatzen ari** (5); **ezkutatzen zela** (6); **ezkutatzen zen** (43); **ezkutatzen zena** (5); **ezkutatzen zirela** (4); **ezkutatzen ziren** (25); **ezkutatzen zituen** (17); **ezkutatzen zuela** (16); **ezkutatzen zuen** (44); **ezkutatzen zutela** (4); **ezkutatzen zuten** (13); **ezkutatzera behartzen** (6); **ezkutatzera joan** (7); **haiek ezkutatzen** (4); **han ezkutatzen** (4); **handiz ezkutatzen** (4); **hark ezkutatzen** (5); **hori ezkutatzeko** (4); **hori ezkutatzen** (4); **horiek ezkutatzen** (4); **hura ezkutatzeko** (4); **informazioa**

ezkutatzea (4); **informazioa ezkutatzen** (19); **informazioa ezkutatzen ari** (9); **nola ezkutatzen** (6); **non ezkutatzen** (9); **ostean ezkutatzen** (5); **zen ezkutatzen** (7); **zer ezkutatzen** (31); **zer ezkutatzen den** (4); **zer ezkutatzen zen** (4); **zerbait ezkutatzen** (28); **zerbait ezkutatzen ari** (6); **zerbait ezkutatzen zuela** (5); **zergatik ezkutatzen** (8); **zuen ezkutatzen** (7)

---

ezkutatzaile *izond* ezkutatzen duena.

Praktikan aginteak berak Eskubide horiek zapaltzea, edo horien zapalketaren **ezkutatzaile** bezala bera ibiltzea, kontzientzia haren burla bat da eta kontzientziaren hondatzailerik kaltegarriena. Joxe Azurmendi

---

ezkutatzeke *adlag* ezkutatu gabe.

Zezen-plaza ia beterik zegoela, agertokiko piano beltz dotorearen bakardadeak atentzioa ematen zuen, baina berehala, eta artean eguzkia **ezkutatzeke** zegoela, musikari ingelesak bere lekua hartu zuen taula gainean, txalo eta oihu artean. Berria - Kultura

---

ezkutu[1] **1** *iz* urrezko eta zilarrezko zenbait diruren izena.

Holandarrek eskainitako letra asko badago, eta frantziarrek eskainitako **ezkutu** gutxi, dirua urri da Frantzian, eta ugari Holandan, eta kanbioak gora egin beharra dauka: nire **ezkutuaren** truke berrogeita hamalau sos-erdi baino gehiago eman behar zaizkit, bestela ez nituzke emango; eta alderantziz. Iñaki Iñurrieta

Zenbat eta sos-erdi gutxiago balio frantziar ezkutuak, **ezkutu** gehiago jasoko du Holandak. Iñaki Iñurrieta

Frantzian hiru liberako ezkututan kontatu ohi denez, kanbioak eskatuko du zenbat sos-erdi balioko duen hiru liberako **ezkutu** batek. Iñaki Iñurrieta

Kanbioa berrogeita hamalautan badago, hiru liberako **ezkutuak** berrogeita hamalau sos-erdi balioko du. Iñaki Iñurrieta

Ondasunik eduki ez baina lan egiten duena, lanik egin gabe ehun **ezkutuko** errenta duena bezain ondo dago. Iñaki Iñurrieta

Demagun Sistemaren garaian, zilarrezko txanponaren legearen eta pisuaren arteko erlazioan, kanbio-tasa berrogei sos-erdi zela **ezkutuko**. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hamar **ezkutu** urrezko balio al ditu ba kanabera honek? Patxi Ezkiaga

Ezkutu sendoa babes harturik. Elizen arteko biblia

Ezkutu biribil distiratsu bat zegoen zuhaitz baten enborretik zintzilik; azalean lau beso biribilen zeltiar espirala zeukan grabatuta, bere klanaren sinboloa. Joanes Urkixo

Haiek zaldi gainean burdinazko saredun kotak jantzita eta **ezkutu** distiratsuak hartu eta barre algaraka ikusteak, urruneko herrietako kantak abestuz, bihotzak pizten zituen. Agustin Otsoa

Frantziak Holandari sos-erdi kopuru bat zor diolarik, zenbat eta sos-erdi gutxiago balio frantziar **ezkutuak**, ezkutu gehiago jasoko du Holandak. Iñaki Iñurrieta

Riddleren urrezko **ezkutu** distiratsua kantoiko armairu batean zegoen gordeta. Iñaki Mendiguren

Frantzian dirua erdira ahulduko balitz, eta hiru liberako **ezkutu** zaharrak Holandan hirurogei sos-erdi emango balitu, **ezkutu** berriak hogeita hamar besterik ez lituzke eman behar. Iñaki Iñurrieta

Honek, ordea, maleta bat aurkituko du, barruan urrezko ehun **ezkutu** zituena. Patxi Ezkiaga

-Jauna, hamar **ezkutu**, urre-urrezkoak, eman nizkion nik gizon honi. Patxi Ezkiaga

3 ezkerreko besoan eramaten zen arma babesgarria. ik**erredola**.

Gelan, Lanceloten **ezkutua** zegoen zintzilik. Juan Kruz Igerabide

Alde batera eta bestera ekin zion berriro, hau eraitsi, hura hil, **ezkutuak** zulatu, buruko babesgarriak erauzi. Juan Kruz Igerabide

Adarga: larruzko **ezkutu** obalatua. Patxi Ezkiaga

Rodela: **ezkutu** borobila, ezkerrarekin heldu eta ezpata-lehiatan bularra babesten zuena. Patxi Ezkiaga

Ezkutu ikaragarri handi, biribil eta beltzak zituzten, eta esku koskotsuetan mailu astunak. Agustin Otsoa

Atera ezpatak, eta erabili mahaiak **ezkutu** gisa. Juan Kruz Igerabide

Ezpata eta **ezkutua**. Anton Garikano

4 (hitz elkartuetan)

Presta **ezkutu**-babeskiak eta jo gudura! Elizen arteko biblia

Lehorrean dituzun hiriak suntsituko dizkizu gerraz; gerlariek eraso-dorreak jarriko dituzte zure kontra, lubetak eraikiko zuri erasotzeko eta **ezkutu**-hesia jarriko beren babeserako. Elizen arteko biblia

---

ezkutu[2] **1** *izond* ezkutaturik edo estalirik dagoena, ezagutzen edo ikusten ez dena.

Gauza **ezkutuak** Jaunak gure Jainkoak bakarrik ezagutzen ditu. Elizen arteko biblia

Jainko **ezkutua** ahal den neurrian ezagutzeko irrika. Joan Mari Lekuona

Apaizak seguru eta harro agertzen ziren, mahai azpian sarrera **ezkutu** bat egina baitzuten, eta handik sartzen ziren janariak eramateko. Elizen arteko biblia

-Baionako azpi-jokoen bulego **ezkutu** nazkagarri haren jukutrien berri garaiz izan banu [...]. Txillardegi

Isiltasunak etxea bere egin zuen, etsai **ezkutu** eta kezkagarria balitz bezala. Jon Alonso

Jende arruntaren ustez, eta agintari erlijiosoen begi lausotuetan, matematikariek bazuten ahalmen **ezkutu** bat sorginkeriazkoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Goseak eta egarriak nesken gibeletik ninderamaten, nola imanak burdina, indar **ezkutu** batek bulkaturik. Joan Mari Irigoien

Sormenak gure baitako eremu **ezkutu** eta inkontzienteenetan botatzen ditu sustraiak. Joxean Agirre

-Gauza orok du bere iruntzia, bere ifrentzua, bere alderdi **ezkutu** edo sibilinoa. Karlos Linazasoro

Arrazoi **ezkutu** horrek galarazten dio bere izenaren aipamena. Juan Garzia

Osaba Joanikotenganako amorio **ezkutu** hura izan zela amaren bizitzako gorabehera guztia, haren geroko jokabidea guztiz baldintzatu zuena. Joan Mari Irigoien

Eta oroitzen ditut, halaber, amaren hitzak, eta haren behakoa, argi **ezkutu** batek liluratua zeukana, noiz eta, sermoia akabaturik, etxerako bidean jarri baikinen, jauregiko kotxean: [...]. Joan Mari Irigoien

Liburuak hemen daude, galaxia **ezkutu** bat bezala, eta hitzak, berorietan, harat-honat dabilen izarren hautsa dira, zentzu batean finkatuko dituen begiradaren zain, Erran zidan gero, bihotza arras zabaltzen zidala, ezen protestanten aurka Frantzian izan ziren pertsekuzio **ezkutu** zein agerikoek egin zutela hondarrean protestant. Jon Alonso

Orduan, sabaiko ate **ezkutua** ireki eta, harrika, zanpatu egin zituzten erregea eta beronen lagunak. Elizen arteko biblia

Burutapen hauek zerabiltzan gogoan eta maiz aritzen zen bere buruarekin isilean hizketan, baina ez zizkion inori bere pentsamendu **ezkutuak** agertu. Askoren artean

Bidean, Lancelot eta Ginebra maitemindu egin ziren, eta bien arteko maitasun **ezkutuak** tragediaren bidea hartuko zuen. Juan Kruz Igerabide

Julioren hilketak hauts **ezkutuak** harrotu zituen auzoan; jende asko hasi zen halako ekintzak gaitzesten. Juan Kruz Igerabide

Orduan, gauza **ezkutuak** agerian jartzen dituen Jauna, epaile zuzena, goretsi egin zuten. Elizen arteko biblia

Toki **ezkutuak**, beraz, hotsez betetzen dira, inguruak astinduz eta hotsarekin dardaratuz. Xabier Amuriza

Euren barru **ezkutuan** hasi ziren, halere, gaiztoak izaten ageriko desobedientzian amildu aurretik. Imanol Unzurrunzaga

Aitak halako gertaerak kontatzen zizkigunean, bere arimaren sarrera-kode **ezkutuaren** zati bat erakusten zigun. Juan Kruz Igerabide

Drogaren eraginez, edo izan zituen bikote-krisiengatik, edo arrazoi **ezkutuagoengatik**, depresio patologikoak izaten hasi zen Adela, eta droga gehiago behar izaten zuen

haietatik irteteko. Juan Kruz Igerabide

2 *ezkutu-ikusle* gauza ezkutuak ikusten omen dituen pertsona.

Hain zuzen ere, ezein igarle, azti edo **ezkutu-ikusle** ez da gai izan aurreikusteko, ez Japoniaren ekonomiaren hazkundea, ez Berlingo hesiaren lur-jotzea, ez herri-demokrazien desegitea. Juan Garzia

Frantzian, berrogei milaren bat azti, igarle, **ezkutu-ikusle** eta karta-botatzaileren artean banatzen da urtero ehunka eta ehunka mila milioi liberako etekina ematen duen negozioa. Juan Garzia

3 *ezkutuan* *adlag* ezkutaturik, estalirik.

Inork ez du kriseilua pizten eta **ezkutuan** edo ontzipean ipintzen. Elizen arteko biblia

Ez al dakik ezen jaun Esteban Etxegoien [...] eta haren bi anaiak -jaun Eusebio Etxegoein eta jaun Pedro Etxegoien- ezin anaikiroago konpondu zirela, hura protestant zen arren eta bertze biak katoliko, **ezkutuan** eta isil-gordean ibili behar izan gabe? Joan Mari Irigoien

Egun batez, **ezkutuan** Jainkoaren gizonarengana joan eta bere asmoa adierazi zion. Askoren artean

Bere burua ezagutarazi nahi duenak ez du **ezkutuan** jarduten. Elizen arteko biblia

Ezkutuan egin zenuen zuk; Israel osoaren aurrean eta egun-argitan eginen dizut nik. Elizen arteko biblia

Espiritu berri, aparteko batez beterik, otoitz egiten zion **ezkutuan** Aitari. Askoren artean

Apoloniok mila zaldizko utziak zituen atzean, **ezkutuan**. Elizen arteko biblia

Guk Jainkoaren jakinduria misteriotsua irakasten dugu, hark **ezkutuan** eduki eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Elizen arteko biblia

Azalduko dizuet, ezer **ezkutuan** utzi gabe. Elizen arteko biblia

Hauen bidegabekeriak ez zaizkio **ezkutuan** geratzen, bekatu guztiak daude Jaunaren aurrean. Elizen arteko biblia

Bera ez zen emaitzak **ezkutuan** gorde zituen bakarra. Jon Muñoz

Orduan, lurrak agerian jarriko du isuritako odola, ez ditu **ezkutuan** gordeko hilketen biktimak. Elizen arteko biblia

Hemendik aurrera hobe izango dut **ezkutuan** gordetzea. Josu Zabaleta

Goiza baino lehen atera zituzten musikariak txalupa beltz batean, alemanen **ezkutuan**. Felipe Juaristi

Hamasei urte bete berri zituenean alde egin baitzuen aitaren **ezkutuan** Parisa, eta han soldadu sartu, Frantziaren etsaien aurka borrokatzera. Felipe Juaristi

Klovisen oinordeko Luis VII.ak agindu zuen lore horren marrazkia bere **ezkutuan** egin zezaten: "lis" lorea deitzen zaio. J.M. Olaizola "Txiliku"

Joxe frontoiko batzarretan ibilia zen mugimendu antifrankistaren garaian, nahiz eta ez zen nabarmendu beste batzuk bezala, erdi **ezkutuan** ari baitzen. Juan Kruz Igerabide

4 *ezkutupean* ezkutuan, isil-gordean.

Ospitaleko praktikanteen artean baziren batzuk xelebre askoak, ospitaleko saguak egiaz, hantxe hamabost-hogei urte zeramatenak, karrera oraindik bukatu gabe, eta behe auzoetan, **ezkutupean**, sendagile askok baino gaixo-bisita gehiago egiten zutenak. Josu Zabaleta

Den-dena **ezkutupean** egin genuen, erabat isil-gordean -Charliek hainbat bider errepikatu zidanez-. Mirentxu Larrañaga

Estatu Bauetako Armadak **ezkutupean** dituen galdeketa zentroen inguruan plazaratu duzuen azken txostenean, bi dozena halako zentroen zerrenda ematen zenuten. Berria - Mundua

Edozein zokotan lo egiten dute, pilatuta, ez dute ia jaten; izugarrizko jipoiak ematen dizkiete; eta zahartzen direnean eta arrakastarik ez dutela ikusten dutenean, hartu eta beste herri batera eramaten dituzte **ezkutupean**. Josu Zabaleta

5 *isil-ezkutuan* isil-gordean.

Isil-ezkutuan hasiko nintzen lanean, izenik gabe edo izen faltsuz. Juan Garzia

Napoleonen garaiko frantziar gobernuak, britainiar salerosgaiak baztertzeko komedia egin zuen Berlingo dekretuarekin, baina **isil-ezkutuan** britainiar botak eta gainjantziak inportatu zituen Napoleonen armadetan erabiltzeko. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alde ezkutu (7); **alde ezkutu bat** (4); **altxor ezkutu** (3); **arrazoi ezkutu** (4); **asmo ezkutu** (4); **bere ezkutu** (3); **bi ezkutu** (3); **edo ezkutu** (3); **ehun ezkutu** (3); **esanahi ezkutu** (3); **eta ezkutu** (13); **eta ezkutu bat** (3); **ezkutu asko** (3); **ezkutu bat** (65); **ezkutu batean** (10); **ezkutu batek** (22); **ezkutu batek eraginda** (3); **ezkutu batekin** (4); **ezkutu bateko** (3); **ezkutu baten** (14); **ezkutu batera** (4); **ezkutu batetik** (3); **ezkutu batez** (3); **ezkutu batzuk** (4); **ezkutu bila** (3); **ezkutu distiratsuak** (3); **ezkutu edo** (4); **ezkutu eta** (28); **ezkutu gisa** (11); **ezkutu guztiak** (4); **ezkutu hauek** (3); **ezkutu hori** (11); **ezkutu hura** (6); **ezkutu ikusle** (3); **ezkutu samar** (3); **ezkutu samar batean** (3); **giza ezkutu** (8); **giza ezkutu gisa** (4); **hamar ezkutu** (5); **hipopotamo ezkutu** (3); **hipopotamo ezkutu bila** (3); **hiru liberako ezkutu** (4); **indar ezkutu** (9); **kamera ezkutu** (4); **leku ezkutu** (5); **leku ezkutu bat** (3); **liberako ezkutu** (6); **mezu ezkutu** (3); **mila ezkutu** (7); **pasabide ezkutu** (3); **toki ezkutu** (4); **zoko ezkutu** (3)

alde ezkutua (4); **altxor ezkutua** (4); **asmo ezkutua** (10); **ate ezkutua** (4); **bere ezkutua** (6); **egunkari ezkutua** (13); **esanahi ezkutua** (7); **eta ezkutua** (18); **ezkutua alde** (3); **ezkutua besoan** (4); **ezkutua da** (4); **ezkutua erakutsi** (4); **ezkutua ere** (4); **ezkutua eta** (14); **ezkutua hartu** (3); **ezkutua izan** (3); **ezkutua zeraman** (3); **ezkutuago batean** (3); **ezpata eta ezkutua** (7); **indar ezkutua** (3); **izen ezkutua** (3); **jainko ezkutua** (3); **jainkoaren asmo ezkutua** (3); **leturiaren egunkari ezkutua** (12); **mezu ezkutua** (4); **picasso ezkutua** (3)

ahalmen ezkutuak (3); **alde ezkutuak** (6); **arrazoi ezkutuak** (3); **asmo ezkutuak** (6); **bilakabide ezkutuak** (3); **eta ezkutuak** (10); **ezkutuak agerian** (6); **ezkutuak agerian jartzen** (3); **ezkutuak ere** (4); **ezkutuak eta** (14); **gauza ezkutuak** (5); **harreman ezkutuak** (3); **harribitxi ezkutuak** (3); **hiru liberako ezkutuak** (5); **indar ezkutuak** (3); **interes ezkutuak** (3); **kontu ezkutuak** (3); **liberako ezkutuak** (5); **mezu ezkutuak** (3); **misterio ezkutuak** (3); **toki ezkutuak** (3)

aitaren ezkutuan (3); **amaren ezkutuan** (3); **arte ezkutuan** (7); **baina ezkutuan** (9); **barruan ezkutuan** (3); **bat ezkutuan** (6); **batzuk ezkutuan** (4); **beti ezkutuan** (3); **betiko ezkutuan** (3); **bistatik ezkutuan** (3); **dago ezkutuan** (6); **denen ezkutuan** (3); **dira ezkutuan** (4); **ditu ezkutuan** (3); **du ezkutuan** (6); **dut ezkutuan** (4); **dute ezkutuan** (3); **edo ezkutuan** (7); **erabat ezkutuan** (3); **erdi ezkutuan** (35); **ere ezkutuan** (7); **eta erdi ezkutuan** (6); **eta ezkutuan** (59); **eta ezkutuan bizi** (3); **ezer ezkutuan** (5); **ezkutuan ari** (6); **ezkutuan atera** (4); **ezkutuan atera zen** (3); **ezkutuan ateratzen** (4); **ezkutuan badago** (3); **ezkutuan baina** (4); **ezkutuan bezala** (3); **ezkutuan bizi** (15); **ezkutuan dago** (6); **ezkutuan dagoela** (4); **ezkutuan dagoen** (10); **ezkutuan dagoena** (3); **ezkutuan dauden** (8); **ezkutuan edo** (3); **ezkutuan eduki** (5); **ezkutuan edukitzen** (3); **ezkutuan egin** (18); **ezkutuan egin behar** (5); **ezkutuan egin zuen** (4); **ezkutuan egitea** (3); **ezkutuan egiten** (14); **ezkutuan egon** (19); **ezkutuan ematen** (4); **ezkutuan eraman** (6); **ezkutuan ere** (4); **ezkutuan eta** (27); **ezkutuan eta isil** (4); **ezkutuan eta isilpean** (3); **ezkutuan gelditu** (4); **ezkutuan gelditzen** (3); **ezkutuan geratu** (9); **ezkutuan geratzen** (11); **ezkutuan gorde** (36); **ezkutuan gorde behar** (6); **ezkutuan gorde nahi** (7); **ezkutuan gorde zen** (3); **ezkutuan gorde zituen** (3); **ezkutuan gordeko** (4); **ezkutuan gorderik** (4); **ezkutuan gordeta** (5); **ezkutuan gordetzea** (5); **ezkutuan gordetzea erabaki** (3); **ezkutuan gordetzeko** (7); **ezkutuan gordetzen** (13); **ezkutuan hitz** (3); **ezkutuan ibili** (13); **ezkutuan ibili behar** (5); **ezkutuan ikusi** (3); **ezkutuan iritsi** (4); **ezkutuan izan** (9); **ezkutuan joan** (3); **ezkutuan joaten** (3); **ezkutuan mantendu** (4); **ezkutuan mantenduko** (3); **ezkutuan mantentzea** (3); **ezkutuan negoziatzen** (3); **ezkutuan pasatu** (4); **ezkutuan sartu** (6); **ezkutuan sartzeko** (3); **ezkutuan sartzen** (3); **ezkutuan utzi** (5); **ezkutuan zegoen** (17); **ezkutuan zegoena** (3); **ezkutuan zeuden** (6); **ezkutuan zeukan** (4); **ezkutuan zuen** (4); **hain ezkutuan** (5); **herrian ezkutuan** (3); **hori ezkutuan** (6); **horretan ezkutuan** (3); **hura ezkutuan** (5); **ia ezkutuan** (5); **izena ezkutuan** (7); **izena ezkutuan gordetzeko** (3); **nire ezkutuan** (3); **nituen ezkutuan** (3); **ondo ezkutuan** (3); **orain arte ezkutuan** (3); **orain ezkutuan** (6); **ordura arte ezkutuan** (4); **zen ezkutuan** (9); **zerbait ezkutuan** (3); **zion ezkutuan** (4); **zituzten ezkutuan** (3); **zuen ezkutuan** (8)

eta ezkutuen (3); **ezkutuaren bila** (3); **ezkutuaren gainean** (3); **ezkutuen berri** (3); **ezkutuenak ere** (7); **ezkutuenean gordetzen** (3); **indar ezkutuen** (3); **zoko ezkutuenean** (4); **zoko ezkutuenean gordetzen** (3); **zokorik ezkutueneraino** (3)

ageriko nahiz ezkutuko (3); **baina ezkutuko** (4); **bere ezkutuko** (6); **beren ezkutuko** (3); **da ezkutuko** (5); **dituzten ezkutuko** (4); **du ezkutuko** (4); **edo ezkutuko** (8); **ere ezkutuko** (4); **eta ezkutuko** (37); **eta ezkutukoak** (8); **euren ezkutuko** (3); **ezer ezkutukorik** (3); **ezkutuko alde** (3); **ezkutuko altxorrak** (3); **ezkutuko arrazoiak** (3); **ezkutuko arrazoiren** (6); **ezkutuko arrazoiren bat** (3); **ezkutuko asmo** (3); **ezkutuko batek** (3); **ezkutuko bere** (3); **ezkutuko beste** (3); **ezkutuko bi** (4); **ezkutuko bidaiari** (15); **ezkutuko bidaiari bat** (4); **ezkutuko bidaiaria** (10); **ezkutuko bidaiariak** (13); **ezkutuko bidaiariak ez** (3); **ezkutuko bidaiariaren** (6); **ezkutuko bidaiariek** (5); **ezkutuko bidaiariekin** (3); **ezkutuko diru** (3); **ezkutuko ekonomian** (4); **ezkutuko erreforma** (4); **ezkutuko eta** (4); **ezkutuko gauzak** (4); **ezkutuko gauzen** (3); **ezkutuko heriotza** (3); **ezkutuko heriotza zigorra** (3); **ezkutuko indar** (3); **ezkutuko interesak** (5); **ezkutuko interesak daudela** (3); **ezkutuko itxiera** (3); **ezkutuko kontuen** (3); **ezkutuko lanean** (3); **ezkutuko maite** (3); **ezkutuko mehatxua** (3); **ezkutuko niaren** (3); **ezkutuko zerbait** (8); **ezkutukoak ere** (3); **konstituzioaren ezkutuko** (4); **konstituzioaren ezkutuko erreforma** (4); **nahiz ezkutuko** (4); **nire ezkutuko** (3); **zein ezkutuko** (3); **zen ezkutuko** (5); **ziren ezkutuko** (4); **zuten ezkutuko** (4); **zuten ezkutuko bidaiaria** (3)

arrazoi ezkuturen (3); **asmo ezkuturen** (3); **bazter ezkuturen** (3); **ezkuturen bat** (27); **ezkuturen batean** (13); **ezkuturen batek** (6); **ezkuturen baten** (3); **grina ezkuturen** (3); **leku ezkuturen** (3); **mezu ezkuturen** (4); **mezu ezkuturen bat** (3); **txoko ezkuturen** (3); **txoko ezkuturen batean** (3)

---

ezkutuka *adlag* ezkutuan, ezkutatzen.

Ezkutuka ibili gabe, bere uste eta iritziak, filiak eta fobiak, argi eta garbi adierazi zituen Monzonek. Berria - Kultura

Ordurako, hasita omen zegoen komentuko lorezainaren semea **ezkutuka** ikusten. Inazio Mujika Iraola

Bere lankideak bezala, Uria ere **ezkutuka** diharduen gaizkile baten antzera bahitu zuten. Berria - Euskal Herria

CCOO eta UGT **ezkutuka** ari dira eztabaidatzen SEPIrekin. Berria - Ekonomia

Zakur deslaiak etorri zitzaizkigun, zaunka, **ezkutuka** gindoazela ikusita. Juan Kruz Igerabide

Kaleko atera heldu eta, handik, kantoi aldera egin zuen, **ezkutuka**, espaloiaren barruko aldetik, eta, bat-batean, atari batean hondoratu zen. Irene Aldasoro

Katy, *bulldog*-a, inguruan dabil oraindik: une batez ikusten dute, ukuiluen ondoan **ezkutuka**, aldendu nahiz bezala. Oskar Arana

Tabuna Kafrauik ogi beltza saltzen zuen **ezkutuka**. Patxi Zubizarreta

Ni ere, enigmaren argitzeko, **ezkutuka** eta itzalgaizka ibili nintzen harat eta honat, Mattinen xerka. Joan Mari Irigoien

Zeren eta egun batean sujet hari buruzko solasa aditu bainien gordeka eta **ezkutuka**, aitona Nikolasek bi urte eskas lehenago hartu erabakiari berriro buru egiteko asmotan. Joan Mari Irigoien

Ezin hobeto ezagutzen ditu bazter horiek, ez ditu-eta alferrik pasatu bi urte paraje haietan batera eta bestera **ezkutuka**. Jokin Muñoz

---

ezkutukeria *iz* ezkutatze gaitzesgarria.

Hasteko, Udalaren «**ezkutukeria**» salatu zuten Zigoitiko bizilagunek. Berria - Euskal Herria

Frantziaren eta autobidea ustiatzen duen ASF konpainiaren jokabide ilunak eta «**ezkutukeria**» deitoratu zituen ABk. Berria - Euskal Herria

Mila **ezkutukeria** eta itsuskeria aitorgaitzetan usatua. Txillardegi

Nortasunaren alde ezkutu bat izan liteke ezusteko hori, ez norbait **ezkutukerian** edo joko gaiztoan ari delako, baizik eta agertu arte ezezaguna izaten delako. Juan Kruz Igerabide

Baina nirekin ez haiteke **ezkutukerietan** ibil. Aingeru Epaltza

Garaziren begietan murgiltzen nintzen jator, tolesturarik gabe, inolako **ezkutukeriarik** gabe. Txillardegi

---

ezkutuki[1] **1** *adlag* ezkutuan.

Gure begiak baditu, bihotzak bezalaxe, bere gorrotoak eta bere samurtasunak, askotan ohartarazi ere ohartarazten ez dizkigunak, eta gure umoreari **ezkutuki**, sekretuan, ezartzen dizkionak. Josu Zabaleta

Irakurri berriak nituela Lutherok indulgentzien kontra skribatu zituen 95 tesiak -egun Parisen bizi den ene lagun mami Joseph Elizanburuk **ezkutuki** igorriak-. Joan Mari Irigoien

Eta berehala Ilbarritzeko gaztelu famatua, eta inguruko bere hamalau xaletak, lurrazpitik gazteluarekin **ezkutuki** lotuak, omen. eguzkiaren urte-itzuli askorekin, eraztuna barrutik mehetu egiten da darabilen hatzean, tantaren erorrerak harria zulatzen du, burdinazko golde-nabar okerra soroetan txikitu egiten da **ezkutuki**, eta harri-bideak jendearen oinetan higaturik dakutsagu. bai, neure baitan hedatu zen zirrara lizun baten eraginez, neska hari **ezkutuki** begiratzeko gutizia egin zitzaidan. Txillardegi

---

ezkutuki[2] *iz* misterioa.

Naturak bere **ezkutukiak** ageriago erakusten ditu, hain zuzen. Xabier Olarra

Idazlearen hilketan, sobra ere, ez zegoen argitu beharreko **ezkutukirik**. Joxean Agirre

Literatura mamitsuak geure bizimodua eta izaera erabakitzen duten **ezkutuki** inkontzienteak kontziente bihurtzen laguntzen baitu, eta inkontzientea kontziente bihurtzean osatzen ei da gaixoa. Markos Zapiain

2 errosarioko misterioa.

Bi egun hauek baitituzte errosarioko misterio berberak: Neke-samiñezko **ezkutukiak** astearte ta barikuetarako, hala seinalatzen du Kristiñau Ikasbideak. Pello Zabala

---

ezkutuko **1** *izlag* ezkutuan egin edo gertatua, ezkutuan dagoena edo aritzen dena, ezkutua.

Aitak bi urte lehenago **ezkutuko** ehiztari bat hil omen zuen. Josu Zabaleta

Ezkutuko tiratzaileen tiro-hotsak aditzen ditugu noizbehinka; beraz, lubakietan ezin dugu zigarretarik erre gauez. Mirentxu Larrañaga

Gordon eta biok **ezkutuko** maitaleak gara. Oskar Arana

Ezkutuko Picasso: Picassoren lanak izango dira irailean. Berria - Kultura

Ohetik jauzi egin eta **ezkutuko** atetik andrearen gelara sartu nintzen. Josu Zabaleta

Aldageletara joaten nintzenean neure taldekideen **ezkutuko** barre txikiak irudikatzen nituen. Joan Mari Irigoien

Estatu Batuek atxilotze zentroak dituzte Afganistango Bagram base militarrean eta Irakeko Abu Graiben ere, eta ez dira ahaztu behar **ezkutuko** kartzelak. Berria - Harian

Handik ikusten dira eskuineko aldean foroa eta portua eta barru harresituaren itzuli guztia; ezkerreko aldearen azpian **ezkutuko** portu bat geratzen da mendien magalean gordeta. Santiago Iruretagoiena

Nik erakutsiko dizut nola heldu **ezkutuko** altxorreraino. Xabier Aranburu

Gogoan zeuzkan Moskun eman zizkioten gomendioak: Siberia **ezkutuko** nortasunarekin zeharkatu eta Irkutskera edonola ere iritsi, baina, burutsu jokatuz, azkarregi joateagatik bidaiaren arrakasta kolokan jarri gabe. Karlos Zabala

Iragana eta etorkizuna iragartzen ditu, **ezkutuko** gauzen aztarnak azaltzen. Elizen arteko biblia

-Zuk ere ba al duzu **ezkutuko** alde ilunik, inori erakusten ez diozunik, Idoia? Juan Kruz Igerabide

Ezkutuko ehizaren aurkako publizitate kanpainak egingo dituzte. Berria - Gaiak

Behin baino gehiagotan bere etxea utzi zuen **ezkutuko** bilerak egiteko. Jose Morales

Estatuko hainbat aginte publikok urratutako eskubideak berrezarri eta **ezkutuko** zentsura amaitzeko. Berria - Kultura

Ustez Frantziatik igaro ziren AEBetako zerbitzu sekretuen **ezkutuko** hegaldiak ikertzeko eskatu zion atzo Frantziako Gobernuari Giza Eskubideen Elkarteen Nazioarteko Federazioak. Berria - Mundua

Lan Sailarekin harremanetan gaude nola edo hala **ezkutuko** itxiera horiek galaraztekoAuzitegi Nazionalak BBVko **ezkutuko** kontuen ahozko epaiketa hasi du. Berria - Ekonomia

Ezkutuko negozio oparoa da leku askotan botika faltsuen salerosketa. Berria - Gaiak

Ezkutuko asmo bat dago hor gordea, misterio izugarri bat. Askoren artean

Presidenteak dio kritika guztien atzean «**ezkutuko** interesak» daudela. Berria - Kirola

Txitxikov gobernadore militarraren bulegotik **ezkutuko** ikerketa bat egitera bidalitako funtzionarioa zela. Jose Morales

Lamelaren **ezkutuko** sekretua enamoratuta egotea zen, baina egiaz enamoratuta, aristokraziako emakume batez. Josu Zabaleta

Ezkutuko klabe hori deszifratu ezean, egilearen mezua galdu egiten da. Iñaki Arranz

1983. urtean izan zuten lehenengoz **ezkutuko** idazkera kode horren berri hizkuntzalariek. Berria - Gaiak

Esaera zaharren **ezkutuko** esanahia aztertzen du, jakinduriazko esaeren enigmak erabiltzen ditu gogoan. Elizen arteko biblia

Adierazle horietan ez dira hartzen kontuan hainbat jarduera, esaterako, nahita ezkutatzen diren zenbait eragiketa, diru beltzari eta **ezkutuko** ekonomiari dagozkionak. Iñaki Heras

Margo bat aztertzeko margolariaren **ezkutuko** diskurtsoa eratu behar da berriz. Xabier Arregi

Ezkutuko jakinduriak eta lurpeko altxorrak, zertarako balio dute biek? Elizen arteko biblia

Nire gutunetan ere ez dago beraietan irakurtzen eta ulertzen duzuena besterik; ez dago **ezkutuko** asmorik. Elizen arteko biblia

Arreta berezirik ez zen behar hari jarraitzeko, inolako **ezkutuko** esanahirik ez zerabilen. Josu Zabaleta

Ezkutuko eta isileko lan ikaragarria egin du erreserbaren balio kulturalen alde. Berria - Kultura

Isilpeko eta **ezkutuko** gutun labur bat, alegia. Joan Mari Irigoien

Botereak, berean irauteko, ez ote du behar, halaber, ageriko edo **ezkutuko** mehatxua, edo biak baterat? Joan Mari Irigoien

Ageriko zen dena, **ezkutuko** bihurtu zen. Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo gisa)

Kajoiko konpartimentu **ezkutuko** batetik hainbat gauza atera zituen: pistola belgiar bat, begizta urdin batez loturiko gutun sorta bat, eta belus horizko azalekiko koaderno mehe bat, gainean Souvenir hitza idatzia zuena. Xabier Olarra

Musikaren indarrak altzariak altxatzeko adinako indarra zuela zirudien, indar **ezkutuko** batek leihoaren beste aldetik errezel astunak puzten zituela. Xabier Olarra

Neronek ere ez dakit zuzen esaten zergatik, oldar **ezkutuko** batek eramaten zuen nire adimena harengana, hala, batere neurri gaberik. Hasier Etxeberria

Legearen ertzaren bestaldean zeuden guztiei laguntza ematen zien aingeru guardako misteriotsu gisako bat zen Veronica: bere sigletan alfabetoko hizki guztiak zituen sindikatu **ezkutuko** partaide. Harkaitz Cano

Aurrerago zioen elkarrenganako atxikimendu **ezkutuko** batek lotzen zituela bien arimak. Jose Morales

Nor bere aldetik, berdintsu zeramaten biek egoera latz hura, halako adostasun **ezkutuko** batengatik edo. Karlos Zabala

Badirudi saltzaileek begiradaren garretan sumatzen dutela hazten ari den gurari **ezkutuko** hori. Josu Zabaleta

Adiskide edo maitale berriren bat hautatzen dutela, ez dituk elkarrekiko loturez askatuko, ez bada bestearen baimen **ezkutuko** eta isilbidezkoaz. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ageriko nahiz ezkutuko (3); **baina ezkutuko** (4); **bere ezkutuko** (6); **beren ezkutuko** (3); **da ezkutuko** (5); **dituzten ezkutuko** (4); **du ezkutuko** (4); **edo ezkutuko** (8); **ere ezkutuko** (4); **eta ezkutuko** (37); **eta ezkutukoa** (6); **eta ezkutukoa ere** (3); **eta ezkutukoak** (8); **euren ezkutuko** (3); **ez ezkutukoa** (3); **ezer ezkutukorik** (3); **ezkutuko alde** (3); **ezkutuko altxorrak** (3); **ezkutuko arrazoiak** (3); **ezkutuko arrazoiren** (6); **ezkutuko arrazoiren bat** (3); **ezkutuko asmo** (3); **ezkutuko batek** (3); **ezkutuko bere** (3); **ezkutuko beste** (3); **ezkutuko bi** (4); **ezkutuko bidaiari** (15); **ezkutuko bidaiari bat** (4); **ezkutuko bidaiaria** (10); **ezkutuko bidaiariak** (13); **ezkutuko bidaiariak ez** (3); **ezkutuko bidaiariaren** (6); **ezkutuko bidaiariek** (5); **ezkutuko bidaiariekin** (3); **ezkutuko diru** (3); **ezkutuko ekonomian** (4); **ezkutuko erreforma** (4); **ezkutuko eta** (4); **ezkutuko gauzak** (4); **ezkutuko gauzen** (3); **ezkutuko heriotza** (3); **ezkutuko heriotza zigorra** (3); **ezkutuko indar** (3); **ezkutuko interesak** (5); **ezkutuko interesak daudela** (3); **ezkutuko itxiera** (3); **ezkutuko kontuen** (3); **ezkutuko lanean** (3); **ezkutuko maite** (3); **ezkutuko mehatxua** (3); **ezkutuko niaren** (3); **ezkutuko zerbait** (8); **ezkutukoa ere** (5); **ezkutukoa ere ikusten** (3); **ezkutukoa eta** (3); **ezkutukoa izan** (3); **ezkutukoak ere** (3); **konstituzioaren ezkutuko** (4); **konstituzioaren ezkutuko erreforma** (4); **nahiz ezkutuko** (4); **nire ezkutuko** (3); **zein ezkutuko** (3); **zen ezkutuko** (5); **ziren ezkutuko** (4); **zuten ezkutuko** (4); **zuten ezkutuko bidaiaria** (3)

---

ezkutukotasun *iz* ezkutukoa denaren nolakotasuna.

Azken egunetan Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak izan dituzten negoziazioen **«ezkutukotasuna»** salatu zuen Aralarrek atzo, Bilbon. Berria - Euskal Herria

---

ezkututoki *iz* ezkutatzeko tokia.

Sasi tartean, soroko zuloetan, ganbarako txoko ilun batean, edozein **ezkututokitan**. Gotzon Garate

Orduan bakarrik ausartu ziren ukiezinak beren **ezkututokietatik** agertzen. Gotzon Garate

---

ezkutuzale *izond* ezkutuen zale dena.

Atzizki-aurrizkien apaltasun ahaltsua; lokailuen zubi-lana; erakusle eta deiktikoen jendetasuna; sintaxiaren herabetasun **ezkutuzalea**; komen jolasgura asegaitza. Joxerra Garzia

---

ezlatino *izond* latinoa ez dena.

Ez da ulertzen, masokismoa ez bada, zer arrazoi dagoen kultura espainol horretan integratu gura izateko, nahiz eta kantoitxo **ezlatino** bat erreserbatuz izan berarentzat eta Euskal Herriarentzat: [...]. Joxe Azurmendi

---

ezlegetasun *iz* legetasunik eza.

Ezlegetasun eta kontraesan hauek gorabehera, hil egin zuten idazkaria. Juan Martin Elexpuru

---

ezlegezko *izlag/izond* legezkoa ez dena.

Gure legeen ustetan, senar-emazte horiek, hain zuzen ere, **ezlegezko** tratuetan ibili ondoren ezkondu direnek, betidanik izan dute gogoa ezkontza erazko batez lotzeko. Andres Urrutia

Terrorismoaren aurka AEBek daramaten gerran ondorio tamalgarriak dakartza **ezlegezko** egoera honek. Berria - Mundua

Goiko pisuko emakume batek **ezlegezko** ebakuntzak egiten zituen, abortuak. Lopez de Arana

Juriskontsulto zahar batzuek, haatik, argudiatu zuten seme-alaba horiek legezkoak izan behar zutela ezkontide batekiko eta **ezlegezko** bestearekiko. Andres Urrutia

Ontziola talde publikoak 1.100 milioi euro eman behar dizkio bueltan Espainiako Estatuari, PPren gobernuaren garaian jasotako diru laguntza **ezlegezkoak** direla eta. Berria - Ekonomia

DNATeko polizia horrek jokabide guztiz **ezlegezko** eta makur hori salatu zuen arren, Lesboss komandantearen aurkako zigortzerik ez zen gauzatu. Berria - Mundua

Ezkontzaren xede nagusietako bat bategite **ezlegezkoen** ziurgabetasun guztiak ezabatzea denez, erlijioak bere ezaugarria ezartzen dio, eta lege zibilek ere berea eransten diote, ahalik eta benetakotasun handiena izan dezan. Iñaki Iñurrieta

Epaileak edozein delitutan silogismo perfektu bat egin behar du: nagusia lege orokorra izango da, txikia legezkoa edo **ezlegezkoa** den ekintza, ondorioa libertatea edo zigorra. Juan Martin Elexpuru

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta ezlegezko (4)

---

ezleial *izond* leiala ez dena.

Eta nork egiten du hori? batzuetan onura publikoko izena duen elkarte batek, hortaz zerga gutxiago ordaintzen duenak eta horregatik lehia **ezleial** eta fierra praktikatzen duenak. Pello Salaburu

---

ezleialkeria *iz* leiala ez denari dagokion egitea.

Sinesten dut bere laztasunez, bere bekatuez bere **ezleialkeriaz** harritzen gaituen Eliza baitan: denak zeharkatzen gaitu. Herria

---

ezleku 1 *iz* lekua desegokia.

Ez postarik iristen da, ez elektrikarik (sic!) eta ez telefonorik (eskufonoak ere ez balio **ezleku** haietan): kanpin-gasaren argi tristeak ozta hausten zuen ilunpe batean egon ginen berriketan. Iñaki Segurola

Gauza ederrekin gozatzen hasi eta laino guztien gaineko ezereztegietan flashaturik eta ezin bizizko **ezleku** arnasgabeetan flipaturik bukatu. Iñaki Segurola

Nolatan aluzinatu deus ez dagoen (baina, aluzinatuarentzat, "dena dagoen") bazter edo **ezleku** alu haietan? Iñaki Segurola

"Amarauna" euliaren hiztegian: **ezleku**, arrisku, galbide. Joxerra Garzia

Mea-hobia arras **ezlekuan** zen, aldaparo malkor batean. Juan Garzia

Hizkuntza berriak: lekua eta **ezlekua** gaiari buruzko solasaldiarekin abiatuko dira, bihar, Bilbon, hainbat sortzaile ezagun bilduko dituzten Periferiak topaketak. Berria - Kultura

ETAren arazoa bera, ordea, franko besterik da, moralki, absolututasun doktrinalen kontu **ezlekukoak** baino. Joxe Azurmendi

2 *ezlekuan*

Ezlekuan eta ezdenboran gertatzen den trantsizio aldi bat, bi munduen arteko jauzi horretara egokitzeko, astronautak beren bidaldi astralen ostean nola. Xabier Mendiguren Elizegi

Mea-hobia arras **ezlekuan** zen, aldaparo malkor batean. Juan Garzia

---

ezlogiko *izond* logikoa ez dena.

J funtzioak emango digu hizkuntzaren sinbolo **ezlogikoen** interpretazioa. Askoren artean

---

ezlokatu *izond* dislokatua, lokatua.

Noski atzeraka erortzean, esan zuen gizaseme haietako batek, krak bat izan zen, **ezlokatua** behar zuen, ez baldin bazen hautsi. Pablo Sastre

---

ezmez

1 *emezean* *adlag* zalantzati, zalantzan.

Ezmezean zegoen aita, begiak ezker-eskuin mugitzen zitzaizkiolarik argibideren baten bila, baina ez zuen deus esaten. Anjel Lertxundi

Brankatik poparantz **ezmezean** pasatzen ikusiriko arratoi hura ez duzu berriro topatuko. Joseba Sarrionandia

Indiara heldu zarenean, nora jo ez dakizula, **ezme-zean** bazara, nik ber-berton esango nizuke inongo zalantzarik gabe: zoaz Varanasira, 3000 urtez bizirik iraun duen hirira. Gotzon Garate

---

ezmoral *izond* morala ez dena.

Giza enbrioiekin ez ikertzea «**ezmorala**» dela adierazi zuen atzo Wilmutek, Erresuma Batuko kate bati egindako adierazpenetan. Berria - Gaiak

Jurgen Hofmann Baden Württenbungeko IG Metalleko buruak berriz, «**ezmoraltzat**» jo du aurrezteko plana. Berria - Ekonomia

Horregatik guztiagatik, «**ezmoraltzat**» jo zuen PPren politika. Berria - Euskal Herria

Tropak Irakera bidaltzea «**ezmorala** eta abertzaletasunaren aurkako» gisa jo du Borgek. Berria - Mundua

---

ezmoraltasun *iz* morala ez denaren nolakotasuna.

Bakoitza berari onuragarri zaiona bilatzera behartua dela eta, printzipio hau **ezmoraltasunaren** eta ez bertutearen eta moraltasunaren oinarria dela uste dutenen arreta nereganatzea. Piarres Xarriton

---

eznahi *iz* nahi ez izatea.

Borrokan isuri nintzen teklatura iraulitako ene eri gogortuekin; **eznahia** ageri zitzaien, une horietako bihotz-ikararen kronikagile bihurtzeko. Aingeru Epaltza

Keinu gogogabe batez adierazi nuen neure **eznahia**. Aingeru Epaltza

Gizonak ur honetara joan eta bere burua itotzen badu, joan, nahi **eznahi**, joan duk. Juan Garzia

---

eznatural *izond* naturala ez dena.

Milaka grina **eznatural** eta ezbehar alferrik sortuz endekatuko eta hondatuko duela bere burua jendaje modernoak. Patziku Perurena

Grina **eznaturalak** eta ezbeharrak, berriz, geure izatez kanpoko konbentzio bidez sortzen dira beti. Patziku Perurena

Onanismo bortxatzaile **eznatural** baten tankera duela. Iñaki Segurola

Halatan da heriotzaren besoetaratu, gozo-gozo nahiz kolpe batean, heriotza naturalez edo **eznaturalez**. Iñaki Segurola

---

eznazional *izond* nazionala ez dena.

"España una"ren jarauntsiaren zama: imajinario katalan bat alegia, edo euskalduna, galegoa, andaluza, diferenteak, edo kontrarioak, "nazionaltzat" berdin onartuak, edo berdin da **eznazionaltzat**, sozialki halaber eskuindarra eta ezkertiarra edo beste edozein bezalaxe, Estatuaren ukaziozkoa barne. Joxe Azurmendi

---

ezne ik **esne**.

---

eznoble *izond* noblea ez dena.

Bitxia zen: hain erabilera **eznoblearen** ondoren, ogia estolda bihurtu zen, "nik ere badaukat nire duintasuna", aldarri egingo balu legez. Harkaitz Cano

eznormal *izond* normala ez dena.

Ispilu konkaboetan jarritako luzera **eznormala** zeukaten haien aurpegiek, serio. Iñaki Zabaleta

Eleberrietan, maitasun handirik gabeko gizon gazterik baldin bazen, gauza **eznormaltzat** jotzen zen; bizitzan, egiaz maitemindutako gizaseme bat aurkitzea zen normala ez zena. Josu Zabaleta

ezohartu

1 ***ezohartuarena egin*** ohartu ez delako itxurak egin.

Nik, ordea, ez diot inongo gerezi hezurrik itzuli eta berak **ezohartuarena** egin du. Patxi Zubizarreta

ezohi *izond* ohikoa ez dena. ik **ezohiko**.

Herri txiki batean dena jakiten da; Ireneori, erriberetako bere basetxean, laster iritsi zitzaion liburu **ezohi** horien berria. Juan Garzia

Ez dut deus esango errima **ezohiaz** eta erakutsitako ilustrazioaz. Juan Garzia

ezohiko *(orobat **ezohizko** g.er.)* **1** *izlag* ohikoa ez dena.

Harryren **ezohiko** gauza guztien artetik, orbain hura zen gauzarik bereziena. Iñaki Mendiguren

Ezohiko lur-tontorrak ikusten ditut, naturaren kontra han-hemenka barreiaturik, gure burdin hesiaz haraindira. Mirentxu Larrañaga

Negua bukatzear dagoela, Galizia mitikoan sartu naiz eta **ezohiko** une eta gune batean murgildua naiz. Piarres Aintziart

Mateoren ardandegian sartu zenean, **ezohiko** bizitasuna zegoela konturatu zen. Felipe Juaristi

Ezohiko zoriona ikusten nuen Rayren begietan eta adiskidetasun ezinezkoa nireetan. Koro Navarro

Apenas hitz egin genuen, baina kezkatu, bai, kezkatu nintzen, soan **ezohiko** antsietatea eta eskuan **ezohiko** dardara nabaritu bainizkion. Joan Mari Irigoien

Ezohiko burrunba hark gaztetako egun arrazoigabeetara bulkatu zuen Zorayda Arrarasen gogo lokartua. Iñaki Segurola

Lehendabiziko aldia zen Willemek Norari hitz bat zuzentzen ziola, baina ez zuen **ezohiko** jarreraren arrazoirik agertu. Anjel Lertxundi

Alde egiteko, Bilbon barnetegi moduan salmenta ikastaro bat antolatu zigutela jarri nion aitzakiatzat, eta **ezohiko** kontua zen arren, ez zidan xehetasunik eskatu. Ramon Saizarbitoria

Utzi -erantzun dio azkar batean, **ezohiko** egoera horri amaiera jarri nahian-edo-. Jokin Muñoz

Ezohiko sarrera zen hori entziklopedia batean. Unai Elorriaga

Ni, etxekoandre, Karakulianbro erraldoia nauzu, Malindrania uharteko Jauna, **ezohiko** borrokan Don Kijote Mantxakoak bentzutu nauena. Patxi Ezkiaga

Batere ez harritzeko esan zidaan, beste andere asko ere, nahiz antzinakoak nahiz oraingoak, hantxe zeudela eta **ezohiko** eran antzaldatuak denak. Patxi Ezkiaga

Jendea arrapaladan bildu zen **ezohiko** ikuskizunera. Askoren artean

Biharamun goizean esnatzean, uste izan zuen **ezohiko** ikuskari hura izango zuen arrakasta handiaren adierazle z ela. Askoren artean

Emaitza erabat harrigarria da Tokugawa shogungoaren estatu unibertsala kulturalki homogeneoa baitzen **ezohiko** maila handian. Iñaki Mendiguren

Adak, nire eskua harturik, alura erakarri zuen **ezohiko** kemen haserretu batez, eta saka egin zuen. Anjel Lertxundi

Ezohiko presaz, dama bizkor igo zen etxe aurrean geldituriko kalesako oin-oholetan gora. Jose Morales

Oso zakar eta **ezohiko** laztasunez erantzun zion Txitxikovi. Jose Morales

Potter ez zen hain **ezohiko** abizena. Iñaki Mendiguren

2 (izenondo gisa)

Izan ere, ikuskizun hain **ezohiko** eta harrigarri hura fedearen sendogarri eta maitasunaren bizkorgarri gertatu zen ikusi zuten guztientzat. Askoren artean

Biróren kasuan badago gertakizun hunkigarri bat, urtero errepikatzen dena eta gizon **ezohiko** hura ingurukoek nola maite zuten adierazten diguna. J.M. Olaizola "Txiliku"

Modu **ezohiko** horretan izan genuen amonaren asmoen berri. Anjel Lertxundi

Neure hezur-gihar uzkurtuei nagiak atera beharrean nengoen eta banuen, horretarako, bizitasun **ezohiko** baten akuilua gogoan. Aingeru Epaltza

Objektu bat, gertakari bat, bat-batean, ageri gorrian ipintzen du argi **ezohiko** batek. Juan Garzia

Gero, oso astiro eta metodikoki, bere poza estu gorderik berezkoa ez zuen kontrol-erakustaldi **ezohiko** batez, Harryk lanari ekin zion. Inguruko kultura indartsuekin konparatuz ahozkotasunaren garapen **ezohiko** eta anormala [...] izanagatik, besteren kanon eta orekak kopiatu beharrik ez daukagula ohartzen baikara, haiek hedapen gaitasunari dagokionez gu baino kultura indartsuagoak izan arren. Oskar Arana

Udaberriko goiz hartan eztulka esnatu zen mutikoa, eztul lehor **ezohiko** batekin, eta ez nuen eskolara bidali. Iban Zaldua

Lehenengoz, eurekiko sentimendu **ezohiko**, bakan, aldrebes, baldarra nabari nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Zalantzak sortu zitzaizkion horrelako mirari bikainaz, hain gauza **ezohiko** eta ezinezkoa iruditzen baitzitzaion. Askoren artean

Egia esateko, nire barruan sekulako poz apartsu bat jauzika sentitzen nuelako bururatu zait halako gauza **ezohiko** bat. Anjel Lertxundi

Sentimendu bitxi eta **ezohiko** batek hartu zion barrua. Jose Morales

Beren lanetan utzi dizkigute, bertan bizi daitezen beren estiloaren bizitza hilezkorrean, "gauaren ilunpean" ikuskatuak zituzten forma **ezohiko** eta iheskorrak, izenik gabeko gauzak. Koldo Izagirre

Aitorpenak, ordu hauetan erabiltzen diren gai ohikoen ondoan hain **ezohiko** eta bortitz, isilik utzi gaitu denok, hoztuta, monoaren ikara gorputzean sartuta. Pako Aristi

Eritasun zoritxarreko haren ondorioz Berenizeren egoera moralean sortu zen aldaketak parada ezinhobea eskaintzen zidala esplikatzen saiatu naizen hausnarketa bizi eta **ezohiko** hori lantzeko. Koro Navarro

3 (izen gisa)

Oztopo bakarra, egoeraren **ezohikoa**. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

akziodunen ezohiko (6); **akziodunen ezohiko batzarra** (3); **artean ezohikoa** (3); **baina ezohiko** (5); **da ezohikoa** (5); **ditu ezohiko** (3); **du ezohiko** (3); **ere ezohiko** (3); **eta ezohiko** (28); **eta ezohikoa** (13); **eta ezohikoak** (7); **ez da ezohikoa** (3); **ezohiko arautze** (3); **ezohiko bat** (6); **ezohiko batek** (3); **ezohiko baten** (3); **ezohiko batzar** (5); **ezohiko batzarra** (16); **ezohiko batzarra egin** (3); **ezohiko batzarra egingo** (11); **ezohiko batzarrean** (7); **ezohiko bi** (3); **ezohiko bi kopia** (3); **ezohiko bilera** (12); **ezohiko bilera egin** (3); **ezohiko bileran** (4); **ezohiko bilkura** (7); **ezohiko bilkura egin** (3); **ezohiko bilkuran** (3); **ezohiko biltzar** (4); **ezohiko diru** (7); **ezohiko egoera** (7); **ezohiko eta** (9); **ezohiko gauza** (4); **ezohiko ibilbidea** (3); **ezohiko isiltasuna** (5); **ezohiko jokalariak** (3); **ezohiko jokalariei** (5); **ezohiko jokalariekin** (3); **ezohiko laguntza** (3); **ezohiko mozkinak** (3); **ezohiko mugimenduak** (3); **ezohiko osoko** (6); **ezohiko osoko bilera** (3); **ezohiko partida** (4); **ezohiko prozedura** (8); **ezohiko taldea** (3); **ezohiko zerbait** (6); **ezohikoa da** (19); **ezohikoa dela** (5); **ezohikoa den** (15); **ezohikoa eta** (8); **ezohikoa gertatzen** (3); **ezohikoa izan** (9); **ezohikoa izan da** (3); **ezohikoa izango** (4); **ezohikoa zen** (4); **ezohikoak diren** (4); **ezohikoren bat** (3); **gauza ezohiko** (4); **genearen ezohiko** (4); **genearen ezohiko bi** (3); **guztiz ezohiko** (3); **guztiz ezohikoa** (12); **guztiz ezohikoa da** (3); **hain ezohiko** (5); **hain ezohikoa** (4); **hori ezohikoa** (4); **hori ezohikoa da** (3); **horren ezohikoa** (3); **izandako ezohiko** (3); **kontseiluak ezohiko** (3); **legeztatzeko ezohiko** (3); **oso ezohiko** (3); **oso ezohikoa** (4); **zen ezohiko** (7); **zerbait ezohikoa** (3); **zuen ezohiko** (8)

ezohikoki *adlag* ezohiko eran.

Begien iltzatze hura profitatu zuen bere gogoa **ezohikoki** askatzeko, eta gogoaren askatze hark beste eskenategi berri batetara lekualdatu zuen, begirada eskeptikoak debekaturik zeuden eskenategi batetara. Iñaki Segurola

ezohizko ik **ezohiko**.

ezongi ik **ongi 7**.

ezontsa ik **ontsa 4**.

ezordu *iz* ordu desegokia. ik **desordu**.

-Nor dabil **ezordu** hauetan? Anjel Lertxundi

Pasealeku Berrira arrainetara joateko asmoz jaiki zen **ezordu** haietan. Migel Angel Mintegi

Ez nuen batere gogorik **ezordu** haietan historiako kontu sakonetan murgiltzeko, baina benetako sorpresa izan zen hura. Xabier Mendiguren Elizegi

ezorganiko *izond* organikoa ez dena.

Shelley esaten ari zaigu nekez uler daitekeela bizitza elementu fisiko eta kimiko **ezorganikoen** multzo soiletik sorturiko ondorio baten modura, eta Golema edo Gizon ikusezina bezalako literatur asmazioen osaketan beti dago zientzia mekanizistaren edo alkimiaren kontrako jarrera. Anjel Lertxundi

ezoroimen *iz* oroimenik eza. ik **desoroimen**.

John Berger **ezoroimenaren** hizkuntzaz hitz egiten duen Londresko idazlea ere Bilbon izatekoa zen, baina arrazoi pertsonalak direla bide ezingo da egon. Berria - Kultura

ezoso *izond* osoa ez dena.

Hona hemen nire ikerketaren emaitza **ezosoa** : Faxistak arrazistak dira eta ez dute baimentzen juduek arioekin garbitu edo jatea. Berria - Kultura

Ez bata ez bestea ematen denean, ordea, bigarren maila batean gaude, homonimia **ezoso** batean, alegia. Iñaki Arranz

Edozein giza Izpirituren ideiak, batzuk egokiak dira, besteak **ezosoak** edo nahasiak. Piarres Xarriton

Ezagutza orok adigai bat eskatzen du, hau hain **ezosoa** edo iluna bada ere. Ibon Uribarri

Azalpen horrekin adituko duzu halakoak Jainkoaren hautemate erabat **ezosoa** duela. Xabier Kintana

Edonola ere azalpen **ezosoaren** adibide gisa baliagarria izan daitekeena. Ibon Uribarri

Norbaitek zenbat eta ukazio gutxiago onartu, Hura are era **ezosoagoaz** hartzen du, kapitulu honen hasieran erakutsi dugun bezala. Xabier Kintana

ezosotasun *iz* osoa ez denaren nolakotasuna.

Bere **ezosotasunaren** seinaleak izan daitezke, esaterako: hitzaurre bikoitzak, ia hitzez hitz errepikatzen direnak [...]. Xabier Amuriza

ezpa ik **ezpada**[1].

ezpabere *junt* bestela.

Ez genduan ezelango susmorik, **ezpabere** jo eta bertan akabauko genduan. Lutxo Egia

ezpada[1] *(orobat **ezpa** g.er. eta **ezpabere** g.er.)* *junt* baizik eta (ere); bestela. **1**

Idazle handiak beti izango dira handi, ez beren famaren indarrez, **ezpada** beren lanaren merituz. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrexek ematen dit beldurra; ez lehendik landutako ildo batera itzultzeak, **ezpada** egozentrismoaren erresuman bertan-goxo egiteak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zinen haserretu nirekin, **ezpada** zeure buruarekin: zakarra, zabarra, zatarra deitzen zenion, neure harriduraren aurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Gabardina jantzi eta maletak jaitsi zituen Matiasek astiro; ez pisu handikoak zirelako edo ordenagailua kariñoz tratatu nahi zuelako, **ezpada** alargunaren atzetik irten nahi zuelako trenetik. Unai Elorriaga

Bere imajinarioa asmatu behar baitzaio "Nazio espainol" berriari, haren nortasun augusto imajinatuaren duina alegia, mistikoa, ezen ez historiko, ez soziologiko eta ez politiko erreala, **ezpada** bai historia eta bai errealitate politikoa xede horrekintxe likitsenik bortxatzen dituena mitoaren zerbitzuan. Joxe Azurmendi

Oso zurbil zegoen, baina harena ez zen heriotzaren zurbiltasuna, **ezpada** gizabanakoak, su bizi eta handi batek barrua kiskaliko balio bezala, batzuetan hartzen duen eta gorputza Sevresko portzelana baten antzera gardenki distirarazten dion zuritasun sutsu berezi hori. Jose Morales

Abasen presentziak ez zion damurik ez sentimendu eztirik eragin, **ezpada** erdeinua eta gorrotoa. Patxi Zubizarreta

Arreta jartzen bada lege zibiletan, ez da eurok zuhurragoak edo zuzenagoak bihurtzeko, **ezpada** aldekoagoak egiteko. Andres Urrutia

Lazgarriena zen gortinen atzetik hiru silueta txiki ikusten zirela bueltaka eta bueltaka, baina ez lurrean, **ezpada** airean. Julen Gabiria

Hori ez genuke tintaz idatzi behar, **ezpada** urrezko zipriztinez. Julen Gabiria

Alabaina, idazketaren erdian, halako bulkada ez bakarrik izpirituzkoak **ezpada** fisikoak. Bego Montorio

Ez dira jatera inguratzen, **ezpada** beren burua erakustera. Jose Morales

Handik laster, bederatziak inguruan, lehen aldiz entzun nuen kutxa hura, ez gatibuei, **ezpada** soldaduei zuzentzen zitzaiela: "An alle SS-Angehörigen", eta jarraian birritan: "Das Lager ist sofort zu verlassen!". Urtzi Urrutikoetxea

Ez dio agur berba bakar bat zuzendu aitari, **ezpada** : "laster ikusi arte, nagusi". Urtzi Urrutikoetxea

Besteak beste ohartarazi nau ez dezadan ahaztu lantokian ez nagoela neure buruaren ordezkari soilik, **ezpada** "judu komunitate osoarena". Urtzi Urrutikoetxea

Alemanek ez eben Gernika txikitu, **ezpabere** ingelesek eta frantsesek. Lutxo Egia

Leku bitxiak ziren, eta gure eiteko hamarka bakan batzuk zale baino ez ziren biltzen haietara, zeinak Sandrok, izenez **ezpa** bistaz, guztiak ezagutzen baitzituen. Juan Garzia

Ez genduan ezelango susmorik, **ezpabere** jo eta bertan akabauko genduan. Lutxo Egia

Senide eta osagileek esaten eusten: kontuz alkohola, sexu eta telebistagaz, **ezpabere** txarto ibiliko zara Ipethea. Jose Angel Irigaray

2 ez bada.

Nork, bada, nik **ezpada**? Josu Zabaleta

Hortaz, ezin da sorgin-gurpiletik atera, **ezpada** zenbait egia hasieratik onartuz, a priori eta behin betiko ezarritzat. Jon Muñoz

Ez zegoen makinaren engranajerik, ez bahiketa zerbitzuko koronelik, engranaje bezala **ezpada**, beste inola joka zezakeenik. Josu Zabaleta

Tira ba, gaur ezin dizut beste ezer esan, **ezpada** Death Valley honetan sua egiten duela, futxo! Patxi Zubizarreta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bada ezpada (3); **ezpada bere** (5); **ezpada beren** (3); **ezpada ere** (3); **ezpada nire** (3)

---

ezpada[2] ik **ezpara**.

---

ezpadare *junt* ez bada ere.

Eskribitu zak hik ere, ta konta hezak zeozer, inbidia emateko besteik **ezpadare**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

ezpai ik **ezbai**.

---

ezpain *(orobat **ezpan** g.er.)* **1** *iz* ahoaren irekidura inguratzen duten bi ertz haragitsuetako bakoitza.

Ihintzak musu eman balie bezala bustirik zeudenan hire **ezpainak**.. Juan Garzia

Saskia bere lekuan uzterakoan, **ezpainak** estu, begiratu bat egin zion erizainak. Lopez de Arana

Ezpainei kosk egiten zien etengabe, eta ezin zion atzamarrak elkarri lotu eta askatzeari utzi. Lopez de Arana

Ezpainen muzina irribarre bortxatu bilakatu zitzaion. Lopez de Arana

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Edek **ezpain** hotzei haginka egin zien. Lopez de Arana

Ezpain haragitsuak, labankaden moduko begiradak. Lopez de Arana

Emakumeak begi beltzak zeuzkan, dilatatuak, eta loreen gainetik, bere **ezpain** irtenek gizonarenganantz jo zuten. Lopez de Arana

3 (hitz elkartuetan)

Ezpain-zapi bat besotik dindilizka ipini zuen. Lopez de Arana

4 ***ezpain ertz*** *(ETCn **262** agerraldi; orobat **ezpainertz** ETCn **3** agerraldi)* ezpainaren ertza.

Irribarre egin zion, **ezpain-ertz** bat zoragarriro izurtuz. Mirentxu Larrañaga

Sorbaldak jaso eta **ezpain-ertza** okertu nuen, etsipenez. Anjel Lertxundi

Ez dakit **ezpain ertzak** luzatuta haren begiradari ahalik eta luzeen eutsiz zenbat iraun ahal izango nuen. Ramon Saizarbitoria

Katilua mahai gainean utzi eta besaurrearekin garbitu zituen **ezpain ertzak**. Unai Iturriaga

Ezpain ertzean zigarro bat zeukan piztuta. Inazio Mujika Iraola

Badakik zer esan zidan andrearekin etorri zen batean? -esan zidan aitak ahapeka, baxoerdia **ezpain ertzean** zuela-. Xabier Mendiguren Elizegi

Zolda likits bat **ezpain ertzean**. Unai Iturriaga

Umeari ahoan musu emateaz batera, amak orin beltz bat agerian utzi zuen, **ezpain ertzean**. Lopez de Arana

Lerdea zerion **ezpain ertzetik**, lo goxoaren seinale infantila. Unai Iturriaga

Bainu barruan zegoen etzanda, **ezpain-ertzetan** irriñoa zuela begiratu zidan. Juan Martin Elexpuru

Txirrio gorri-beltz txiki bana irristatu zitzaion **ezpain-ertzetatik** behera. Anjel Lertxundi

5 ***ezpain zapi*** *(ETCn **124** agerraldi; orobat **ezpainzapi** ETCn **57** agerraldi)* mahaian, nork bere garbitasunerako erabiltzen den zapia.

Guztirako balio baitzion sotana beltz hark: traje bezala, pijama bezala... baita musu-zapi edo **ezpain-zapi** bezala ere. Joan Mari Irigoien

Zerbitzaria, mindurik eta amorratuta, zoko batera baztertu zen, **ezpain-zapia** besoan. Fernando Rey

Aitak ere **ezpain-zapia** lepotik zintzilik jartzen du etxean. Jokin Muñoz

Lepo falta horregatik, konkorra duela dirudi, eta beste pianista batzuek ere baduten itxura hori du, **ezpain-zapia** paparrean eramateak areagotzen diona. Ramon Saizarbitoria

Ezpain-zapiak mahaiko apaingailu gisa tolesteko artea. Joxan Elosegi

Ez kezkatu -egin zuen marmar izeba Margek, **ezpain-zapiaz** aurpegia lehortuz-. Iñaki Mendiguren

Erabat hunkituta, bere **ezpain-zapiaz** estali zuen aurpegia. Iñaki Mendiguren

Ezpain-zapiaz xukatzen zituen malkoak. Joseba Urteaga

Paper gofratuak, inprimatuak, oihalezko egiazko **ezpain-zapien** moduan vichy apaingarri gorri eta xuriz hornituriko paperak. Joxan Elosegi

Jamesek eta Maisiek euren **ezpain-zapietan** ito zituzten euren barre-algarak. Lopez de Arana

Mahaiko **ezpain-zapi** bat hartu eta hauxe idatzi zioten, izenburuan Ingrid Bergman andreari zuzendua jarri zutela: [...]. Pello Salaburu

Paperezko **ezpain-zapia** eskuan nuen, eta hartan tolesdurak egiteari lotu nintzaion, erantzun baten bila. Aingeru Epaltza

Ehun mila **ezpain-zapi** paperezko! Anton Garikano

Auskultaziorako erabilitako **ezpain-zapi** garbia tolesten ari zen. Joseba Urteaga

6 ***ezpain zapitxo*** *adkor* ezpain zapi txikia.

Kopak ur-busti ditut, eta orain platerño ilara bat jartzen ari naiz; gainean **ezpain zapitxoak**, eta hauetan croissantak, gero, pattarra baino gosari mardulagoaren eske datozenei tapa!, ondoan jartzeko. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

baina ezpainak (8); **bat ezpain** (14); **bat ezpainetan** (83); **bat ezpainetan zuela** (8); **beheko ezpaina** (26); **beheko ezpainari** (10); **bere ezpain** (30); **bere ezpainak** (25); **bere ezpainen** (12); **bere ezpainetan** (13); **bere ezpainetatik** (9); **ditu ezpainak** (16); **du ezpain** (12); **du ezpain artean** (6); **du ezpainetan** (8); **eman zidan ezpainetan** (6); **eman zion ezpainetan** (10); **eta ezpain** (63); **eta ezpainak** (114); **eta ezpainak eta** (6); **eta ezpainekin** (6); **eta ezpainen** (13); **eta ezpainetako** (6); **eta ezpainetan** (25); **eta ezpainetara** (10); **eta ezpainetara eraman** (6); **ezpain artean** (32); **ezpain artetik** (21); **ezpain ertzak** (7); **ezpain ertzean** (15); **ezpain ertzetan** (7); **ezpain eta** (9); **ezpain gainean** (10); **ezpain gorri** (6); **ezpain gorriak** (6); **ezpain haragitsuak** (10); **ezpain horiek** (7); **ezpain lodi** (7); **ezpain lodiak** (7); **ezpain margo** (6); **ezpain mehe** (6); **ezpain meheak** (7); **ezpain zapi** (15); **ezpain zapia** (8); **ezpain zapiak** (6); **ezpain zapiaz** (7); **ezpaina hozkatu** (7); **ezpainak bildu** (10); **ezpainak bildu zituen** (7); **ezpainak busti** (12); **ezpainak busti zituen** (7); **ezpainak dardarka** (6); **ezpainak doi** (7); **ezpainak erdi** (6); **ezpainak ere** (14); **ezpainak estu** (8); **ezpainak estutu** (26); **ezpainak estutu eta** (6); **ezpainak estutu zituen** (13); **ezpainak estuturik** (6); **ezpainak estututa** (11); **ezpainak estutzen** (8); **ezpainak eta** (34); **ezpainak ez** (6); **ezpainak garbitu** (6); **ezpainak haren** (6); **ezpainak hozkatu** (17); **ezpainak hozkatu zituen** (12); **ezpainak hurbildu** (6); **ezpainak ia** (6); **ezpainak mugitu** (10); **ezpainak mugitzen** (16); **ezpainak ukitu** (8); **ezpainak zabaldu** (10); **ezpainak zimurtu** (12); **ezpainak zimurtu zituen** (9); **ezpainari kosk** (6); **ezpainei hozka** (6); **ezpainen artean** (16); **ezpainen arteko** (6); **ezpainen artetik** (6); **ezpainen xokoan** (6); **ezpainetan behera** (10); **ezpainetan eta** (26); **ezpainetan ez** (6); **ezpainetan irri** (10); **ezpainetan**

irribarre (15); **ezpainetan irribarrea** (7); **ezpainetan jarri** (6); **ezpainetan musu** (13); **ezpainetan musu eman** (7); **ezpainetan zuela** (20); **ezpainetara ekarri** (6); **ezpainetara eraman** (25); **ezpainetara eraman zuen** (8); **ezpainetara eramanez** (7); **ezpainetara hurbildu** (12); **ezpainetatik kendu** (8); **goiko ezpaina** (20); **goiko ezpainaren** (7); **haren ezpain** (14); **haren ezpainak** (14); **haren ezpainen** (7); **haren ezpainetan** (14); **haren ezpainetatik** (9); **irri bat ezpainetan** (8); **irriñ irria ezpainetan** (43); **irribarrea ezpainetan** (41); **nire ezpain** (6); **nire ezpainak** (17); **o bat ezpainetan** (14); **paperezko ezpain** (8); **zidan ezpainetan** (7); **zigarroa ezpainetan** (15); **zion ezpainetan** (16); **zituen ezpain** (9); **zituen ezpainak** (28); **zitzaion ezpain** (6); **zitzaion ezpainetan** (13); **zizkion ezpainak** (7); **zuen ezpain** (6); **zuen ezpainak** (7); **zuen ezpainetan** (21); **zure ezpainak** (12)

---

ezpainalde *iz* ezpainen aldea.

Berak ez zuen loturarik lasatu, pentsatu zuen, koilara utzi eta bere **ezpainalde** ongi afeitatua fintasun handiz garbituz. Anton Garikano

---

ezpainarte *iz* ezpainen arteko gunea.

Dardarka zeukan **ezpainartea**, eta dirdai eutsiezin halako bat zerien begiei. Anjel Lertxundi

---

ezpainbikari *izon* hotsez mintzatuz, bi ezpainen artean gauzatzen dena.

Hots ezpainkariak ezpainen arteko hurbiltze edo hersketaren bidez ebakitzen diren hotsak direnez eta ekintza horretarako ezpain biak (goikoa eta behekoa) direnez beharrezko, ezpainkari esateak berez adierazten du **ezpainbikari**. Lourdes Oñederra

---

ezpaineratu, ezpainera(tu), ezpaineratzen da/du *ad* ezpainera joan; ezpainera eraman.

Hain zuen aurpegi serioa eta nekatua, ezen Gabrieli ez baitzitzaion hitzik **ezpaineratu**. Irene Aldasoro

Otsotzarmendi jaunak, zurbil aurpegia eta itzal begiak, mikrofonoa **ezpaineratu** zuen kemen indarberrituaz. Karlos Linazasoro

Kikara **ezpaineratu**, barrukoa hustu, eta erretiluan utzi ondoren zutitu egin zen. Migel Angel Mintegi

Basoa **ezpainetaratu** bezain laster konturatu da: aztoraturik, botila erdi-betea hartu, eta Mirinda dela konfirmatu du. Iban Zaldua

Batzuetan espero ditugun gertaerak dira irribarrea **ezpaineratzen** digutenak. Berria - Kultura

Barrirudia **ezpaineratu** zitzaion Justo Badiolari, ezin eutsita. Joxemari Urteaga

Biratu da Jorge, eta *kaixo* apal bat **ezpaineratu** du; haren begirada altzairuzkoa da oraindik, ordea. Iban Zaldua

Jabea, bere buruaz segur, isil-isilik bertaratu zitzaion eta gerrialdea besarkatuz "egun on, Joseba" esan zion, hitzak boluptuoski **ezpaineratuz**. Iñaki Zabaleta

---

ezpainertz ik **ezpain 4**.

---

ezpainetaratu, ezpainetara(tu), ezpainetaratzen da/du *ad* ezpainetara joan; ezpainetara eraman.

Kanta baten xuxurla **ezpainetaratu** zitzaidan. Aingeru Epaltza

Mespreziozko irribarrea **ezpainetaratu** zitzaion. Karlos Zabala

Milizkatu berriko zigarroa **ezpainetaratu** eta isiotu osteko zurrupaldia arnas-hartze zaratatsuaz lagundu zuen. Josu Landa

Haren esku hezurtsuak pipa itzalia **ezpainetaratu** zuen. Alberto Ladron Arana

Kontzientziaren arras lasaitzeko, gasna xerra bat moztu eta **ezpainetaratu** nuen. Itxaro Borda

Solasari lotu baino lehen, osaba Joanikotek kopa **ezpainetaratu** eta arno kurka bat egin zuen. Joan Mari Irigoien

Kontalari batek haria eten eta aurrean daukan basoa **ezpainetaratzen** ez badu, ezinegon bitxia sortzen die entzuleei. Matías Múgica

Agureak kikara **ezpainetaratu**, eta putz egin zuen kafea hoztu zedin. Patxi Zubizarreta

Bordeleko arnoa **ezpainetaratu** zuen, plazer osoz, Paradisuko atarian balego bezala. Joan Mari Irigoien

-Aupa! -oihukatu genuen beste hirurok, kopa jasoak **ezpainetaraturik**. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arnoa ezpainetaratu (3); **ezpainetaratu eta** (3); **ezpainetaratu zitzaion** (5); **ezpainetaratu zuen** (5); **ezpainetaratzen zuela** (3); **irribarrea ezpainetaratu** (3); **irribarrea ezpainetaratu zitzaion** (3)

---

ezpaingorri *izond* ezpainak gorriak dituena.

Hitzaldiak hasi ziren, txapel gorri bat, preso egondako bat, neskato **ezpaingorri** bat pasatu ziren udaletxeko balkoitik, txaloka jardun zen jendea, eta gero danboliteroak atabala jo zuen tan tantan tan tan. Joseba Sarrionandia

---

ezpainje *iz adkor* ezpainen itxura.

Baziren makartzuak, erbi **ezpainje** erorikoak, hankaje bihurrikoak, eta beste zernahi alderdi maketseko eta itsusikoak. Patziku Perurena

---

ezpainka *adlag* **

Ezin zuen hitzik, otarrean hiltzen ari den urraburua ematen zuen, **ezpainka**. Koldo Izagirre

---

ezpainkari *izond* ezpainetan eratzen dena.

Hots **ezpainkari** edo biezpainkariek goiko eta beheko ezpainen arteko hurbiltze edo hersketan dute ahoskunea. Lourdes Oñederra

Hor /u/ Š/b/ ordezkatzearekin, silaba muga adierazteko jarri den puntu horrek erakutsi bezala, ondorengo silabaren hasierara igarotzen da elementu **ezpainkaria**. Lourdes Oñederra

Dardarkari **ezpainkariak** Afrikako hizkuntza zenbaitetan ohiko dira. Lourdes Oñederra

Berez **ezpainkariak** direnak (p eta b herskariei dagozkienak, alegia), oso erabilera urrikoak direnez, ez ditugu kontuan hartuko; eskuarki, herskari horiek **ezpainkari**-horzkariez ordezkatzen dira. Isabel Arrigain

---

ezpainkaritasun *iz* ezpainkaria denaren nolakotasuna.

Har dezagun horren erakusgarri *m* hotsaren **ezpainkaritasuna**. Lourdes Oñederra

---

ezpainkaritze *iz* ezpainkari bihurtzea.

Nolakotasun ilunagoak ezpainak atereaz ("biribiltzea", **"ezpainkaritzea"**) lor daitezke, edo mihia atzeratuz ("belarizazioa"), edo mihia atzeratzea eta laringearen jarrera batera eginez. Lourdes Oñederra

---

ezpainondo *iz* ezpainen ingurua.

Haiek ibilerak, gureak, **ezpainondo** guzia eta ator xuriaren kolkoa gerezi mantxaz moretua genuela! Patziku Perurena

---

ezpainpe *iz* ezpainen azpialdea.

Bokarta-olioaren arrasto mehe bat distiratzen zen haren **ezpainpean** eta, aho itxitik, asots apal batzuek haren mihiaren borrokaren berri ematen zuten haginen arteko zirrituetan pausaturiko urdaiazpiko hondarren baten aurka. Aingeru Epaltza

---

ezpaintsu *izond* ezpain askokoa.

Gizena eta titi-haundia Ceres bera da Bakorekin, sudurzapala Silena, Satira emea, **ezpaintsua** musu-lorea. Xabier Amuriza

---

ezpaintxo *iz adkor* ezpain txikia.

Beren esku utzi nuen neure burua, beren mihiak adostasun osoz ibili ziren nire klitorisean eta **ezpaintxoetan**, perineoan eta uzkian, izterbarruetan eta ipurmasailetan, bizkarrean eta kokotean, belarrietan eta lepoan, niri berdin zitzaidan, nik ez nuen pentsatzen, sentitu egiten nuen bakarrik, nire haragiaren taupada hutsa nintzen. Juan Martin Elexpuru

---

ezpainzabal *izond* ezpainak zabalak dituena.

Paul Klee-ren *Aingeru Berria* bezala -historiaren aingerua, burua itzulia, ahoa **ezpainzabal** eta begiak lokatuak izuaren izuz, erdi zabalik hegoak, eskapatu nahi eta ezinda bere atzean ikusten ari den iraganari. Joxe Azurmendi

---

ezpainzapi ik **ezpain 5**.

---

ezpal **1** *iz* aizkoraz edo kideko tresnaren baten bidez egurra edo zura ebakitzean gertatzen den zati edo atal ziri antzekoa.

Neskak orduan aloe egur zati bat atera zuen, eta **ezpal** bat kendurik, sutara bota zuen. Patxi Zubizarreta

Itsasoan tarte bat zegoen, **ezpal**, kaxoi, laranja-azal eta aza-orrizko geruza batez estalia. Lopez de Arana

Hondartzara joaten hasi zen, itsasoak lehorreratzen zituen enbor, **ezpal** eta oholen bila. Anjel Lertxundi

Errauts arteko su moteldua suspertu du gero **ezpal** batzuen laguntzaz. Anjel Lertxundi

Ezpal guztiak hartu eta su eman zien. Alberto Barandiaren

Bere eskua, **ezpal** bat zirudiena, nirean hartuta eduki nuen harik eta halako batean lo itxurak egitea erabaki nuen arte. Ramon Saizarbitoria

Ezpal moduko bat sentitzen nuen eztarrian. Bernardo Atxaga

· Burdin ziri bati joka mazo batekin, burdin ziriaren **ezpal** bat edo burdin puska bat jauzi ondoan. Herria

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bi **ezpal** txiki erantsi zizkion eta su-zuloa estali zuen. Anjel Lertxundi

Ameriketara joandako irlandar askok zuhaitz horren **ezpal** ttikiak zeramatzaten itsasoko txorabio eta mareoen aurkako sendagaitzat. Pello Zabala

Jakina zen Larretxea ongi prestaturik dagoela, eta ederki jardun zuen, kolpe bakoitzean **ezpal** ederrak aterata. Berria - Kirola

Bere giharrek **ezpal** hautsiak ziruditen, bere hezurrek biela bihurrituak. Lopez de Arana

· Hiru hilabete eman ditut Larretxearekin eta **ezpal** txikian aritu naiz. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Egunkari zahar baten orriekin pilotatxoak egin eta **ezpal**-metatxoaren ondoan jarri zituen. Anjel Lertxundi

Izei eta pinu enborrak, itsaslasterrak urperatuta, erruz azaleratzen dira, baina txiki-txiki eginda denak, **ezpal** mordo baten gisara. Koro Navarro

· Alde horretako masailean zur-**ezpal** zorrotzak haragian sartzen sumatu nituen. Alberto Ladron Arana

Kanpaia lau solairutan behera amildu zen gure oinetara, zur eta beira **ezpal** bilakaturik ziplo. Juan Garzia

4 irud/hed

Dirassar **ezpal** honetakoa da. Janbattitt Dirassar

Beste **ezpal** batekoa da "Sarri", jakina. Joakin Elio jeneral-buru zaharraren anaia gazteago honek, beste **ezpal** batekoa ematen zuen. Patziku Perurena

-Grosrouvre ez da **ezpal** horretakoa -protestatu zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Baina zure **ezpal** berekoa zen haurra: gauez ankerki joan da nigandik, bidaia egitera, nitaz ahaztu eta sekula ez itzultzeko. Eduardo Matauko

Ezpal bereko usadiorik bada oraindik. berak egindako gainontzeko gauza guztiak ez dira haren **ezpal** berekoak. Pello Zabala

Martxoan Pazkoa Urte hura faltsoa! **Ezpal** berekoa da beste hau ere: Martxoan Pazkoa? Sekula ez gogokoa! Pello Zabala

Gauzak ez dira jada lehenagokoen **ezpal** berekoak. Hasier Etxeberria

Zurez eginda bazaude ere, ez zara nahitaez **ezpal** oneko. Oskar Arana

Ederki asko atera zion **ezpal** garbia honako esaera honekin: Urtarrilean tximeleta ikusi baino, otsoa ardi artean ikusi nahiago. oroimena ahula baita, eta benetan gertatuei buruzko liburuak, maiz, ikusi eta aditu dugunaren printzak eta **ezpal** makalak baizik izaten ez direlako. Pello Zabala

Nire lagunaren jarduera beraska hartan ez nuen antzematen hain ondo ezagutzen nion **ezpal** gogorra. Anjel Lertxundi

Lonbardiar gotzaina **ezpal** zabarrekoa zen, eta haren aurrean jarritako bizantziar perlak itxurazko perlak bakarrik baldin baziren, hori ezartzean aldi berean eta zalantzarik gabe benetako txerri gisa agertzen da bera. mutila duzuen bezalakoa duzue, etxegoiendar guztiak bezala **ezpal** onekoa, eta ez dugu horretaz zertan kezkatu ez arduratu. Iñaki Mendiguren

Semea, amaren **ezpal** ustela zela. Aingeru Epaltza

Borroka bidezko froga aukeratzean, nazioak bere **ezpal** gerrazaleari eusten zion. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaren ezpalekoa (3); **bat ezpal** (3); **bereko ezpalak** (5); **beste ezpal** (5); **beste ezpal batekoa** (4); **ereko ezpala** (4); **eta ezpal** (6); **eta ezpalik** (3); **ezpal bat** (5); **ezpal batekoa** (4); **ezpal bereko** (3); **ezpal berekoa** (9); **ezpal berekoak** (5); **ezpalekoak ziren** (3); **halako ezpala** (5); **lur ezpalak** (3); **zur bereko ezpalak** (3)

---

ezpaldu, ezpal(du), ezpaltzen **1** du *ad* ezpaletan zatitu.

Mahai gainean kortxo eta nikelezko gorputzadarra zetzan, **ezpaldua** eta mailatua. Lopez de Arana

Komun bakoitzaren zurezko atea **ezpalduta** zegoen eta urratuta, eta haietako bat erroetatik kanpo zintzilika. Iñaki Mendiguren

Ezpaldu egin zen, basiliskoa, alde batera desorekatu eta, bihurrika, lurrera erori zenean. Iñaki Mendiguren

Gauza gehienak txiki-txiki eginda egoten ziren, modu harrigarrian: marraskatuta bezala eta **ezpalduta** irteten ziren, halako moduan non zotz mordoa baitziruditen. Koro Navarro

Egurrezko kaxak zeuden edonon, haietako gehienak birrinduak eta **ezpalduak**. Josu Landa

2 irud/hed

Zarautzen esaterako, hasierako bertso-eskola hura nola **ezpaldu** den argi ikus daiteke. Andoni Egaña

Ezizena neurri-neurrikoa izanez gero, ahoz aho hedatzen bada ere, hitz idatzia bezain ezabaezina da: aizkorakadaka ere ezin **ezpaldu**. Jose Morales

3 (era burutua izenondo gisa)

Argi zurixkan hiru kaio jira-biraka zebiltzan; behean, hesiaren ohol **ezpalduen** artean flotatzen, kutxa hautsiak, laranja-azalak eta aza ustelak zituzten. Lopez de Arana

Notila puska **ezpalduen** gainean eroso eserita zegoen aurreko gaueko katu argala. Koro Navarro

Ohol ustel, zahar, **ezpaldu** eta lur itsaskorrez beteen gainean ibilia zen. Juan Garzia

---

ezpalka *adlag* ezpaletan.

Bil ezazue lehenik muria, eta lotu **ezpalka** erretzeko. Anjel Lertxundi

---

ezpaltsu *izond adkor* ezpal asko duena.

Hortzak garbitzeko mentoldun gozoki **ezpaltsua**. Iñaki Mendiguren

---

ezpaltxo *iz* ezpal txikia.

Diotenez, itotzear dagoenak edozeri heltzen dio, denik eta ezpalik txikienari ere, une horretan ez baita konturatzen **ezpaltxo** horrek euli baten pisuari eutsi ahal diola gehienez ere, eta berak lau edo bost pud pisatzen duela; baina nola une horretan ez den pentsatzeko gai, **ezpaltxoari** oratzen dio. Jose Morales

Ikatz-koxkorraren ondoren, belztutako **ezpaltxo** hori aurkituko dut, eta burura etorriko zait orduan zein txarra izan daitekeen sua. Bernardo Atxaga

Eguerdi aldera handik ateratzean, egur eskail eta **ezpaltxoak** larruan txertatzen zitzaizkiolako aitzakiaz, dutxatzen zen. Itxaro Borda

Santakrutzetan erramu bedeinkatuz egindako **ezpaltxo** gurutzedunak. Pello Zabala

---

ezpan ik **ezpain**.

---

ezpara *(orobat **ezpada** g.er.) iz* **1** *Tabanidae* familiako intsektua, eulia baino handiagoa, ziztada mingarriak egiten dituena. ik **ezpateuli**.

Oinen azpian belar bigun ongi zainduaren ukitua, **ezpara** baten burrunba belarriaren ondotik igarotzen ari zaidalarik. Oskar Arana

Beroa, gosea, **ezparak** odol berritara. Joxean Sagaztizabal

Larre-saguak korrika bizian nire ondotxotik, ziraunak, armiarma erraldoiak, zizareak, satorrak, bareak, matxinsaltoak, erletzarrak, **ezparak**, euli-mandoak, ehunzangoak, kakalardoak, barraskiloak, mantalgorriak, kilkerrak, txirritak. Joxean Sagaztizabal

Gainera, hola ez duk euli xintik ere sartzen etxe barnera, guziak enegana zetozek: euli, mandeuli, **ezpada** eta gisako mixtoluxe odolkoi oro; eta ez dakik ongi nola pozten nauten! Patziku Perurena

2 irud/hed

Han ziren gorteko kideak, baina baita mantenu errazera hurbildutako **ezpara** eta mandeuli arruntagoak ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

ezpata *iz* **1** arma zuria, altzairuzko xafla zuzen eta zorrotz batez, eta eskutoki gehienetan babestu batez osatua.

Eta hau agindu zuen erregeak: -Ekardazue **ezpata**! Elizen arteko biblia

Atera **ezpata** eta sar iezadak alderik alde, jentil arrotz horiek niri barre egitera etorri baino lehen. Elizen arteko biblia

Jauzi egin, **ezpata** atera, ezkutua bota, eta gogor ekin zion zaldun erraldoiari. Juan Kruz Igerabide

Lasterka joan, filistearraren **ezpata** hartu, zorrotik atera eta lepoa moztu zion. Elizen arteko biblia

Gizon-multzo bat zetorren harekin, **ezpata** eta makilak eskuetan. Elizen arteko biblia

Zorroztu heure **ezpata**! Agustin Otsoa

Orbel lehorretik gerlari bat altxatu eta berarenganantz oldartu zen, garrasika eta **ezpata** airean astinduz. Joanes Urkixo

Izuak hartuko ditu haietako erregeak nik **ezpata** astintzean beraien aurrean. Elizen arteko biblia

Dukeak kontseilatu bezala, **ezpata** gerriratu, eskopeta hartu eta mendirat joaiten zen usu, batean zaldiz, hurrengoan oinez. Joan Mari Irigoien

Ezpata altxatu eta indar guztiz zafratu nuen atea. Aingeru Epaltza

Ezpata jirabiratuz, demonioen artera oldartu zen. Joanes Urkixo

Fionnek **ezpata** altxatu zuen, eta honen muturretik bioleta koloreko txinparta bizi bat sortu zen, munstroak jo eta bertan iraungi zituena. Joanes Urkixo

Bazetorren bada, esan den bezala, euskaldun zuhurraren aurka Don Kijote, **ezpata** gora jasorik, bertan erdibitzeko asmo bizitan. Patxi Ezkiaga

Joabek gudari-jantzia zeraman soinean, gerrikoz loturik eta gerrikotik zintzilik **ezpata** bere zorroan. Elizen arteko biblia

Ezpatak zorroan sarrarazi zituen, haatik, ez gorrotoak itzalarazi. Aingeru Epaltza

Begiak altxa eta ikusi zuen Davidek Jaunaren aingerua zeru-lurren artean zegoela, **ezpata** zorrotik aterea eskuan hartu eta Jerusalemen kontra luzatuz. Elizen arteko biblia

Nik orain berean hartuko diat neure lehen erabakia -eta, **ezpata** maginatik ateratzen zuela, eratxiki zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

Eskuak itsuka bilatu zuen **ezpataren** eskutokia. Agustin Otsoa

Ez egon zain-zain, noiz nik nire **ezpatari** helduko haien aurka; ez baitut inolaz ere egingoHazaelen **ezpatari** ihes egin diezaiona Jehuk hilko du, eta Jehuren **ezpatari** ihes egin diezaiona Eliseok hilko du. Patxi Ezkiaga

Hazaelen **ezpatari** ihes egin diezaiona Jehuk hilko du, eta Jehuren **ezpatari** ihes egin diezaiona Eliseok hilko du. Elizen arteko biblia

Jaunak ez duela behar **ezpatarik**, ez lantzarik gu salbatzeko, Jaunak baitu gudua erabakitzen. Elizen arteko biblia

Geldi-geldirik jarraitu zuen, ezkutuari sendo eutsiz eta eskua **ezpataren** kirtenean jarrita. Joanes Urkixo

Jainkoaren aingerua zain dago **ezpatarekin**, zu erdi-erditik ebakitzeko. Elizen arteko biblia

Zaldizkoen oldarra, **ezpaten** distira, lantzen tximistak! Elizen arteko biblia

H5N1 Afrikan zabaldu denez, nekazariek «birusaren Damoklesen **ezpatarekin**» bizi beharko dutela gaineratu zuen. Berria - Gaiak

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Lehoien artean natza, gizaki-gose diren horien artean; horien hortzak lantza eta gezi, mihia **ezpata** zorrotz. Elizen arteko biblia

Ezpata zorrotza eta ongi leundua! Elizen arteko biblia

Hona zer dioen aho-biko **ezpata** zorrotza duenak: [...]. Elizen arteko biblia

Karitatearen su-labetik sortzen den anaien salbazioaren grina, suzko **ezpata** zorrotz bezala sartu zen Frantziskoren barne-muinetan, eta hain sakon sartu ere, ezen dena gar baitzirudien gizon honek, arimak salbatzeko grina lehiatsuz isiotua, baina baita gupidaren bihotz-minaz zauritua ere. Askoren artean

Bey kurduak jauregira ailegatzen ari ziren, banaka edo binaka, alai, tente, **ezpata** luze eta zatarrak gerrikoan lotuak. Fernando Rey

Memo, lastertasun zoroan, **ezpata** biluziarekin, begiak betzuloetatik ateratzen zitzaizkiola, zaldiaren ondotik ziegara eta ziegatik zaldiaren ondora zihoan, bere **ezpata** sekulakoak oinaztargien gisako distirak egiten zituela. Fernando Rey

Pazifiko anaiak bi **ezpata** distiratsu ikusi zituen santuaren ahoan. Askoren artean

Irlandara abiatu zen berriro bere **ezpata** hautsiarekin. Juan Kruz Igerabide

Izan bezate Jainkoaren goralpena ahoan, aho-biko **ezpata** ere bai eskuan. Elizen arteko biblia

Erakundearen arabera, presak eta bestelako eraikuntzak aho biko **ezpatak** dira, eta ez dira behar bezala aztertu dituzten arriskuak. Berria - Gaiak

Ahotsa goratzen dute turutaren pare, nazioen gain mendeku hartu eta jentil-herriak zigortzeko; **ezpata** mendekatzaileak eskuetan, heriotza eragiten dute; hiriaren inguru-minguru dabiltza, zakurren antzera gosea jasanez. Askoren artean

Zutarri sakratuak irlandarron errege berria izendatuko du, eta honek Birgha **ezpata** magikoari eutsi ahal izango dio. Joanes Urkixo

Behean, ur beltz beldurgarrien orroa; eta zubia, **ezpata** bezain zorrotza; bestaldean, bi lehoi amorratu. Juan Kruz Igerabide

Bere suzko **ezpataz** sakabanatzen zituen, eta ihesi joaten ziren, garrasika eta intzirika. Jose Morales

3 (hitz ekartuetan lehen osagai gisa)

Datil-antzeko oskiak oinetan, eta mairu-alfanjea bular-zeharkako **ezpata**-uhalean. Patxi Ezkiaga

Eskua **ezpata**-buruan zuela zaldiaren inguruan ibili zen, amorruaren garrak sututa. Fernando Rey

Gaztetan, Irlandara joan, eta Morholt erraldoia hil zuen; **ezpata** muturra hautsi eta barruan geratu zitzaion erraldoiari. Juan Kruz Igerabide

Nor bere aldetik ihesi abiatu ziren denak, askotan beren artean elkar zaurituz eta **ezpata**-muturrez elkar zulatuz. Elizen arteko biblia

Zeren haientzat **ezpata**-hotsen eta odol isuriaren neurrikoa baita ohorea. Joan Mari Irigoien

Hurrengo **ezpata**-kolpeak ez zuen betean asmatu. Joxe Aberasturik **ezpata**-ukaldi bakarrez trenka ahal izan zezan buru hura, eta garait zitzan, halatan, zaldun guztiak baterat. Agustin Otsoa

1521 hartako udazkenean, errege Henrikeren aldeko leialek, **ezpata**-ukaldika, Belatez eta Iba-etaz harata uxatu zuten berriz etsaia. Aingeru Epaltza

Ezpata-ahoz hilko dituzte eta nazio guztietara eramango gatibu. Elizen arteko biblia

Nirea da guzti-guztiaren errua, ez bainuen **ezpata**-jokorik egin behar, ni bezala zaldun armatuak ez direnen aurka. Patxi Ezkiaga

Rodela: ezkutu borobila, ezkerrarekin heldu eta **ezpata**-lehiatan bularra babesten zuena. Patxi Ezkiaga

Munduan ez da herririk gerra ospatzen duenik; beraz, **ezpata** dantza ezin liteke gerra dantza izan. Berria - Kultura

22 kirol erakustaldi izango dira: atletismoa, xakea, gimnastika, pilota, beisbola, **ezpata** jokoa, surfa, arrantza, txirrindularitza, herri kirolak, bela eta kirol egokitua, besteak beste. Berria - Kirola

4 (hitz ekartuetan bigarren osagai gisa)

Sion gudari-**ezpata** bihurtuko dut, eta haren semeak greziarren aurka jaikiaraziko ditut. Elizen arteko biblia

5 irud/hed

Abramovitxen **ezpata** lepondoan du italiarrak eta hori ona edo txarra izan daiteke. Berria - Kirola

Erakundearen arabera, presak eta bestelako eraikuntzak aho biko **ezpatak** dira, eta ez dira behar bezala aztertu dituzten arriskuak. Berria - Gaiak

Heriotzarako dena, heriotzara! **Ezpatarako** dena, **ezpatara**!

-Erresumak **ezpatak** behar ditu, ez liburuak. Aingeru Epaltza

Ezpata Jerusalemen aurka. Elizen arteko biblia

Ezpata amondarren aurka. Elizen arteko biblia

Ezpatak golde bihurtuko dituzte eta lantzak igitai.

Aska nazazu **ezpata** zitaletik, libratu atzerritarren eskutik! Elizen arteko biblia

Mendekuaren **ezpata** luzeak une mikatzenak gozatzeko balio dezakeela jakitea. Berria - Mundua

Eta horretarako **ezpata** hotsa ere erabili behar badute, erabiliko dutela, joan den astean Jose Mena Aguado militar espainiarrak Kataluniara begira egindako abisu neurtuarekin gertatu bezala. Berria - Euskal Herria

Herrien nahia ukatzeko **«ezpata** zarata» ez egiteko eskatu du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

1001 gauetako Xerazade haren antzera, herioaren **ezpata** atzentzeko kontu-kontari ari zaigu Brooklyngo aztia, narrazioaren festa etengabeko batean. Berria - Kultura

6 ***Damoklesen ezpata*** etengabe mehatxatzen duen arriskua.

Espero dut aldarrikapen horiek zein Konstituzioaren aldekoak egunen batean mahai baten gainean jartzeko aukera izatea, **Damoklesen ezpata** gainean izan gabe, inor mehatxatuta egon gabe. Berria - Harian

Traste haiek guztiak **Damoklesen ezpata** bezala neuzkan buru gainean zintzilik! Koldo Biguri

H5N1 Afrikan zabaldu denez, nekazariek «birusaren **Damoklesen ezpatarekin**» bizi beharko dutela gaineratu zuen. Berria - Gaiak

Inpugnazioa atzera bota izana albiste pozgarria izanagatik, «zapore gazi-gozoa» ere utzi diela adierazi zuen lehendakariordeak, azken sei hilabeteotan Jaurlaritzak «**Damoklesen ezpata**» gainean izan duelako. Berria - Euskal Herria

Damoklesen ezpataren legeak. Berria - Euskal Herria

7 ***ezpata arrain*** *(orobat* ***ezpatarrain*** *g.er.) iz* arrain handia, ezpata antzeko mutur luze eta zorrotza duena*(Xiphias gladius).*

Itsasoen defentsarako Oceana erakundeak legatza eta **ezpata-arraina** babesteko neurri zerrenda bat aurkeztuko dio Europako Batzordeari astelehenean. Berria - Gaiak

Itsasoen defentsarako Oceana erakundeak legatza eta **ezpata-arraina** babesteko neurri zerrenda bat aurkeztuko dio Europako Batzordeari astelehenean. Berria - Gaiak

Dortoken apokalipsia **ezpata-arrainaren** eta hegalaburraren familiako kideen harrapaketari dago lotuta. Berria - Gaiak

Eezpatarrainarekin izan zuen borrokaren ostean bere burua ikusi du arrantzale zaharraren larrupean, eta istorioa bere buruari kontatzeari ekin dio. Edorta Jimenez

Dortokak salbatzeko eta, bide batez, **ezpata-arrainen** egoera hobetzeko, amuen tamaina handitzea, forma aldatzea eta arrantza mugatzea proposatu diete arrantzaleei. Berria - Gaiak

Ez zitzaidan batere kostatu Hemingway hantxe bertan irudikatzea, mojitoak edaten eta argazkietarako jarria itsasoan harrapatzen zituen **ezpata arrain** handiak eskuetan.

Jon Muñoz

8 ***ezpata dantza*** *(orobat* ***ezpatadantza****)* dantzari ezpatadunek egiten duten euskal dantza.

Eta herrian **ezpata-dantza** eta alabantza-oihuen artean hartu zituztela bueltatu zirenean. Xabier Etxabe

Hemen ohi den bezala, asko egunez, dantzariak baziren meza hartan, eta dantzari batek emaiten du aurresku edo **ezpata dantza** bat, esker onezko otoitza akabatzean. Herria

-Zer ari haiz orain, **ezpata dantza** entseatzen? Harkaitz Cano

Euskal haurrak aterpetzeko batzordeak sortu zituzten lord eta lady guztiek, kiroltasun handiz txalotzen zuten gureen footballa beren umeen aurka jokatzen zutenean, zelako esku-zartak **ezpatadantza** dantzatzen zutenean! Koldo Izagirre

Fandangoak, **ezpata-dantzak** eta euskal kutsuko beste pieza asko gitarraren soinuarekin entzutera ez omen dago ohitua jendea Euskal Herrian. Berria - Kultura

9 ***ezpataz*** *adlag* ezpata erabiliz.

Judasek kemen handiz pertsegitu zituen eta gaizkile haiek **ezpataz** jo. Elizen arteko biblia

Etsaiak elkar joka ari ziren **ezpataz**. Elizen arteko biblia

Lurrean ikusirik, Mordretek **ezpataz** eraso zion, eta burua zauritu. Juan Kruz Igerabide

Ezin baitu gure herria inork zigortu, ez eta **ezpataz** menperatu ere. Elizen arteko biblia

Gatibutzarako dena gatibutzara doa. **Ezpataz** hil beharrekoa **ezpataz** hilko da. Elizen arteko biblia

Zeren, maisuak ongi erran zuen bezala, **ezpataz** hiltzen duena **ezpataz** hiltzen baita. Joan Mari Irigoien

Zortzi milaren bat hil ziren **ezpataz** nahiz sutan kiskaliak. Elizen arteko biblia

Bera ere etorri zitzaidan gero bila Jordanera, eta nik Jaunarengatik zin egin nion ez nuela **ezpataz** hilko. Elizen arteko biblia

Josuek amalektarrak garaitu zituen eta **ezpataz** garbitu. Elizen arteko biblia

Zin egin zuen mendekatuko zela Zilizia osoaz, Damasko eta Siriaz, eta **ezpataz** sarraskituko zituela Moab, Amon, Judea eta Egiptoko bizilagun guztiak, itsasotik itsasoraino. Elizen arteko biblia

10 ***ezpatazko*** *izond*

Zeren senda baitaitezke zauri **ezpatazkoak**, baina nekez mihizkoak, nola izan baitziren anaiak neuri eraginak. Joan Mari Irigoien

Ni emaztearen oroimen urdinetik ihesi nentorren, haren prostata kiskalitik, haren ezpain **ezpatazkoetatik**, eta jo egiten nuen, oi, eta jo egiten nuen egunero eta maite nuen eta haren gorputz arin eta limurkorraren estasia eta gerriko beltza, oi, maite zenbat maite zintudan bchwzploliptf. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aho biko ezpata (8); **ahoko ezpata** (4); **aitatxiren ezpata** (3); **atera ezpata** (6); **atera ezpata eta** (4); **aurka ezpata** (3); **baina ezpata** (8); **batean ezpata** (3); **batek ezpata** (5); **bere ezpata** (28); **bere ezpata atera** (3); **bere ezpata gerrian** (3); **bi ahoko ezpata** (4); **bi ezpata** (13); **biko ezpata** (8); **birgha ezpata** (15); **brontzezko ezpata** (3); **da ezpata** (3); **damoclesen ezpata** (8); **damoklesen ezpata** (4); **den ezpata** (3); **du ezpata** (4); **duzu ezpata** (3); **edo ezpata** (5); **ene ezpata** (3); **erresumaren ezpata** (4); **erresumaren ezpata zorrotza** (3); **eskalibur ezpata** (3); **eskuan ezpata** (5); **eta ezpata** (75); **eta ezpata atera** (5); **etsaiaren ezpata** (3); **ezak ezpata** (3)

ezpata airean (6); **ezpata altxatu** (8); **ezpata altxatu eta** (4); **ezpata altxatu zuen** (4); **ezpata askatu** (3); **ezpata astintzean** (3); **ezpata atera** (43); **ezpata atera eta** (21); **ezpata atera zuen** (9); **ezpata ateratzen** (7); **ezpata bat** (25); **ezpata bat zen** (3); **ezpata batek** (6); **ezpata batekin** (4); **ezpata baten** (7); **ezpata bere** (7); **ezpata bere zorroan** (3); **ezpata berriro** (3); **ezpata bezain** (4); **ezpata biluztu** (3); **ezpata borrokak** (3); **ezpata da** (8); **ezpata dantza** (12); **ezpata distiratsu** (3); **ezpata distiratsua** (7); **ezpata edo** (5); **ezpata eman** (4); **ezpata erabiltzen** (3); **ezpata ere** (6); **ezpata eskuan** (27); **ezpata eskuan zuela** (7); **ezpata eta** (45); **ezpata eta ezkutua** (7); **ezpata ez** (3); **ezpata gainean** (4); **ezpata gainera** (3); **ezpata gainera bota** (3); **ezpata gerrian** (8); **ezpata gerrian eta** (3); **ezpata gisa** (3); **ezpata goititu** (3); **ezpata handi** (5); **ezpata handi bat** (5); **ezpata handia** (3); **ezpata hartu** (16); **ezpata hartu eta** (5); **ezpata harturik** (3); **ezpata hori** (4); **ezpata hura** (9); **ezpata kolpe** (6); **ezpata kolpe batez** (3); **ezpata kolpea** (3); **ezpata kolpeak** (4); **ezpata lurrean** (3); **ezpata luze** (3); **ezpata luze eta** (3); **ezpata luzea** (4); **ezpata magiko** (3); **ezpata magikoa** (3); **ezpata sartu** (4); **ezpata sartu eta** (4); **ezpata txikia** (3); **ezpata ukaldi** (6); **ezpata ukaldika** (3); **ezpata ukitu** (3); **ezpata zaharra** (3); **ezpata zorroan** (6); **ezpata zorrotik** (19); **ezpata zorrotik atera** (9); **ezpata zorrotik aterea** (3); **ezpata zorrotz** (9); **ezpata zorrotza** (18); **ezpata zorrotza eta** (3); **ezpata zuen** (3)

baina ezpataren (3); **bere ezpatarekin** (5); **bere ezpataren** (4); **bere ezpatari** (3); **birgha ezpataren** (7); **birgha ezpatari** (3); **ene ezpataren** (5); **ene ezpataren gainean** (5); **eragin zion ezpatari** (3); **ere ezpatak** (3); **eskua ezpataren** (6); **eta ezpatak** (19); **eta ezpatak eskuetan** (3); **eta ezpatarekin** (5); **eta ezpataren** (7); **eta ezpatari** (5); **eta ezpatarik** (4); **ezpatak baino** (4); **ezpatak bezala** (3); **ezpatak eskuetan** (5); **ezpatak eta** (10); **ezpatak hil** (3); **ezpatak jo** (4); **ezpatak jo eta** (3); **ezpatarekin edo** (3); **ezpataren aurrean** (3); **ezpataren bila** (3); **ezpataren gainean** (7); **ezpataren kontra** (3); **ezpataren punta** (4); **ezpatari eta** (3); **ezpatari eusten** (4); **ezpatari ezin** (3); **ezpatari ezin trebeagoa** (3); **ezpatari heldu** (4); **ezpatari helduko** (3); **ezpatari ihes** (3); **ezpatarik ez** (5); **ezpatarik gabe** (4); **filistearraren ezpata** (3); **fionnek ezpata** (6); **gerrako ezpata** (3); **haien ezpata** (3); **haren ezpata** (4); **hire ezpata** (3); **izter ondotik ezpata** (5); **jaunaren ezpata** (4); **justiziaren ezpata** (5); **neure ezpata** (7); **nire ezpata** (12); **nork bere ezpata** (6); **ondotik ezpata** (5); **ondotik ezpata atera** (4); **suzko ezpata** (4); **zegoen ezpata** (3); **zen ezpata** (3); **zilarrezko ezpata** (4); **zion ezpata** (4); **zion ezpatari** (5); **zioten ezpata** (3); **zorrotik ezpata** (5); **zorrotik ezpata atera** (4); **zuen bere ezpata** (4); **zuen ezpata** (23); **zuen ezpata atera** (3); **zuten ezpata** (3)

bere ezpataz (7); **bizilagun guztiak ezpataz** (5); **bizilagunak ezpataz** (4); **dena ezpataz** (3); **edo ezpataz** (5); **ere ezpataz** (4); **ere ezpataz hil** (3); **eta ezpataz** (16); **etsaien ezpataz** (3); **ezpataz erori** (3); **ezpataz eta** (13); **ezpataz eta makilaz** (3); **ezpataz garbitu** (3); **ezpataz garbituko** (3); **ezpataz hil** (35); **ezpataz hil eta** (4); **ezpataz hil zituen** (4); **ezpataz hil zituzten** (11); **ezpataz hil zuten** (3); **ezpataz hilarazi** (4); **ezpataz hilez** (3); **ezpataz hilko** (14); **ezpataz hiltzen** (4); **ezpataz jo** (8); **ezpataz jo eta** (5); **ezpataz pertsegituko** (3); **gazteak ezpataz** (3); **guztiak ezpataz** (13); **guztiak ezpataz hil** (9); **hil ezpataz** (3); **hil zituzten ezpataz** (3); **profetak ezpataz** (3); **ziren ezpataz** (3); **zituzten ezpataz** (3); **zuen ezpataz** (3)

---

ezpatadantza ik **ezpata 7**.

---

ezpatadantzari *iz* ezpata dantza dantzatzen duen dantzaria.

Pablo Ibar-ez euskal hedabide publikoetan esandakoak datozkizu berehala akordura, eta Francisco Larrañagaz loratutakoak, eta erreportaje bitxietako "Ameriketako euskaldunak", askotan egundo lur hau zapaldu ez dutenen postal zuri-gorri-berde horiek, aizkoran Boisen, txinga eroaten Caracasen, **ezpatadantzari** La Platan, zangoa euskal zeruraino jasoa. Iñigo Aranbarri

Ni San Tiburtzio eguerdin **ezpatadantzarik** ekusten nagoala, beroak itto beharren, zeaz akordatzen nak urtero: leitzarrak illargie itzaltzera yoan zieneko hartaz. Patziku Perurena

Ezpatadantzariek hura poza! Patziku Perurena

Dantzariak hasi ziren handik pixka batera, ugari eta era askotakoak, estalpeko alde batetik eta bestetik sartzen, **ezpata-dantzariena** zen talde bat; hogeita lau mutil gazte izango ziren, azkarrak eta lerdenak mutilak, zuri-zuri jantziak eta kolore bizitan zeta finez ehoturiko zapiak buruan. Patxi Ezkiaga

Herri jakintza horrek, alabaina, ezpata dantza *ezpara*tik datorrela dio, antzinako herritarrak gogor borrokatzen baitziren ezpara izurrien kontra, eta hori egiteko modua zuten kaskabiloak janztea, **ezpata dantzariek** eramaten dituzten kaskabiloak, alegia. Berria - Kultura

---

ezpatadun *izond/iz* ezpata duena.

San Migel Behe-Normandiako zaindaria da, San Migel, aingeru distiratsu gailena, **ezpataduna**, zeruetako heroia, garailea, Satanen menderatzailea. Josu Zabaleta

Ez gara parkeetako panpina-trapatan mila gudari **ezpatadunen** aurka ukabila jasotzen duen trapuzko agure txiribiria baino gehiago. Anjel Lertxundi

Ahmetek ere ikusi zuen gizon **ezpataduna**, baina ez zuen mugimendu txikiena ere egin. Fernando Rey

Haiexek daude orain modan, eta hain uhukatu eta gaitzetsiak, aldiz, antzoki arruntak -hala deitzen diete-, ezen hainbat **ezpatadun** bapo, antzar-lumen beldur, doi-doi ausartzen baita bertaratzera. Juan Garzia

Josue eta **ezpatadun** gizona. Elizen arteko biblia

---

ezpataka *adlag* ezpata erabiliz.

Ezpataka dihardute berriro. Juan Garzia

Bi aldeak **ezpataka** dabiltza airean beren itzalekin, izan ere, izadiaz goiti doaz, non beren atzapar dogmatikoek heldu eta atxiki daitekeen ezer ez duten beren aurrean. Ibon Uribarri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ezpataka dihardute (3)

---

ezpatakada 1 *iz adkor* ezpata ukaldia.

Hondarrean, besoa ubeldua nuen **ezpatakada** batez. Aingeru Epaltza

Kortsario veneziarraren bi **ezpatakada** saihestu ondoren, jauzi egin zuen haren gainera eta, hankekin lepoari gogor eutsiz, arnasarik gabe utzi zuen. Felipe Juaristi

Golek buelta erdia egin eta **ezpatakada** bota zion, baina berandu: ordurako Fionnek eskuan zeukan Birgha, eta zutitzen ari zen etsaiari aurre egiteko. Joanes Urkixo

Arriskutsua duk gizaki txatxarra horrela denean aurkari ahaltsuen **ezpatakada** sumin bizikoen erdian agitzen. Juan Garzia

Bere erasoen indarrari esker, atzerantz egitera behartzen zuen Peter, eta bere **ezpatakadarik** gogokoenarekin amaitzeko desiratzen zegoen, Barbakoak Rion aspaldi erakutsi zion bezala. Julen Gabiria

Jolas moduan hil genuen, merkatari ingeles bati ostutako lepoko urrezkoa genuelako aitzakian, ostatu apartatu batera ekarri ondoren, urrea maitea baitzuen oso, eta lepokoak ere bai, emakume ederrak adina, eta **ezpatakadaz** hil genuen, bat, bi, hiru, gehiegi sufriarazteke. Felipe Juaristi

Goitik eta kanpotik dator aurreneko **ezpatakada**, egia, baina errenditzea, amore ematea eta heriotzako kolpea etxetik, barrendik, guhaurenganik: guhaur gara ama ukatu duten haur dohakabeak, eta hemen dago ama bat bere haurrek hila, eta bere seme-alabez abandonatua; eta egiten du galde: nork barka dezaguke gure bekatua? Iñaki Segurola

2 irud/hed

Bestetik, petrolioa eta euroa zaldi apokaliptikoak itzuli dira, eta euren **ezpatakadek** bi asteotako baikortasuna desagerrarazi dute. Berria - Ekonomia

---

ezpatakadaka *adlag* ezpata ukaldika.

Denek ezin dezakete Gonzalo Mendes de Maiak, O Lidadorek, bezainbeste iraun, honek orain hirurogeita hamar urte ditu eta sasoi betean dago, are, laurogeita hamarretan, oraindik ere, **ezpatakadaka** ibiliko da Tangerreko erregearen aurkako gatazkan, eta azkenik hil egingo da. Jon Alonso

---

ezpatalari **ik ezpatari**.

---

ezpatari *(orobat **ezpatalari** g.er.) iz* ezpataz borrokatzen den edo ezpata trebetasunez erabiltzen duen pertsona.

Ezpatari batek, sabelean hondoraino sastatzen zutelarik, ez zuen nik adinako ziztadarik sumatuko erraietan. Juan Kruz Igerabide

Axular bizi zen garaian baziren hiru **ezpatari**, zein baino zein trebeagoak beren ezpatarekin. Joan Mari Irigoien

Hara, **ezpataria** eta poeta, bi-biak batera. Aingeru Epaltza

Bere herriko **ezpatalariak**, zin egin zuen ez direla, ez mugimendu, ez guardia, ez begiz, zurekin alderatzeko gai. Juan Garzia

Imanoli otu zaio behatxuloak Kristoaren begien atzealdean egon behar duela, **ezpatarien** film zaharretan bezala. Iban Zaldua

Artur txikia Merlinek hezi zuen, eta sir Ektorrek erakutsi zion zaldun eta **ezpatari** trebe izaten. Juan Kruz Igerabide

Peter **ezpatari** bikaina zen, eta bizkortasun harrigarriz geratzen zituen kolpeak. Julen Gabiria

Egunero entrenatzen duk, **ezpatari** profesionalak bezala. Xabier Olarra

Ezpatari euskaldunak erantzun zion: 'Bai, baina euli horrek ez dik aurrerantzean larrua joko...!'. Joan Mari Irigoien

Han irekitako zuloan barrena, trumilka sartzen da barrura **ezpatari**-oste bat. Jon Muñoz

Eta hau honela bada, eta halaxe da noski, ongi tuntuna litzateke Kiteria, Basilioren palankari **ezpatari** dohainak aukeratzeagatik, Kamatxoren apain-bitxiak utziko balitu. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ezpatari ezin trebeagoa (3)

---

ezpatarrain ik **ezpata 7**.

---

ezpatatxo *iz* ezpata txikia.

-Benetan eskertzen dizut **ezpatatxoa** zorrotik atera izana. Joanes Urkixo

Hiriburuko dorre nagusiaren grabatuak ertz bat apaintzen zion **ezpatatxoa** arasa gainetik hartu zuen. Joxemari Urteaga

---

ezpatatzar *iz adkor* ezpata handia.

Memo kartzelazaina, bere **ezpatatzarrean** bermaturik, belaunetarainoko orein-larruzko longain batean bildua zegoen. Orain hartzen baitu hitza Portoko apezpikuak, hau ere armatua, eskua paratzen du **ezpatatzarraren** heldulekuan, han dagoen gurutzearen gainean, eta hauxe esaten du, [...]. Fernando Rey

Antzinako **ezpatatzar** handiren batez armatuta. Josu Zabaleta

Zelari itsatsia zekarren zorrotik kanpora atera zuen bere **ezpatatzar** makoa zaldun harrigarri hark. Xabier Aranburu

---

ezpatazale *iz* ezpataren zalea dena.

Eta Antonio gogatsu zihoan, eta ni ere gogatsu nindoan, lepotik neure behatzezurren erlikiak dilindan neramatzala eta gerrikoan puinal bat, zeren eta, bertze nonbait kontatu dizudan bezala, ez bainintzen **ezpatazale**, eta ez nekien, halatan, hura ongi manaiatzen. Joan Mari Irigoien

---

ezpateuli *iz* ezpara, *Tabanidae* familiako intsektua.

Laugarren izurria: **ezpateuliak**. Elizen arteko biblia

Jainkoak agindu eta **ezpateuli** eta eltxoak zabaldu ziren bazter guztietan. Elizen arteko biblia

Hala egin zuen Jaunak, eta **ezpateuliak** sailean etorri ziren faraoiaren eta funtzionarioen jauregietara eta lurralde osora, eta aurrean harrapatu guztia hondatu zuten.

Elizen arteko biblia

Egipto bigantxa ederrari **ezpateulia** datorkio iparraldetik. Elizen arteko biblia

Ez badiozu uzten, **ezpateuli** -izurria bidaliko dizuet zeuri, zure funtzionario eta herriari: Egiptoko etxe guztiak eta inguruak **ezpateuliz** beteko dira. Elizen arteko biblia

---

ezpel *(orobat **ezpel-ondo**)* **1** *iz* zuhaixka hosto-iraunkorra, eskulangintzan erabiltzen den zur gogor eta trinkoa duena *(Buxus sempervirens).*

Baso hartan -soroaren eta errekaren artean, haritz tantaien gerizpean- bost **ezpel**, elkarren jiran landatuak, bata bestearengana luzatzen hasiak zeuden lurretik metro batera, gela huts biribil bat sortuz, altueran bi metrokoa. Anton Garikano

Ametzak, **ezpelak** gure aitzinean, gibelean. Piarres Aintziart

Eskuin, etxe handia, lorategian **ezpelak, erramuak, limoi arbola eta beste arbola txiki, erdi parean iturria eta horma kontra borda txiki bat; antzara hotsa zetorren handik. Pablo Sastre

Akaziak, bide bazterreko **ezpelak** handitu dira 18 hilabete hauetan. Marzel Etxehandi

Ezpelaren suak luze irauten baitu eta gogotik berotzen. Anjel Lertxundi

Bi emakumeak Graemetarren jauregira itzuli zirenean, mamu ibiltariak ziruditen, barneko suak erretako bi fantasma kiskali: izeko espiritu ihar eta hits bat zen, bere zorroztasunaren labanak **ezpel** horian egindako irudi zurbil eta izu bat, eta, haren ondoan, ikaratutako oreinkumea zirudien Barbarak, kristalpean gehiegi babestutako krabelin iluna. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hobe zen gozatu bat hartzea, begiratzeko baimena edukitzea, zeren gose zaharra -Maitea baino lehenagoko gose hura, **ezpel** artera eta koloniara joanarazi zuena bizitzari gustu hartzeko, koskatsua sentitzeko eta ez zapala-, gose hura ez baitzen posible. Anton Garikano

Gezalaren eta **ezpel** adar idorren usainarekin bezala. Joxan Elosegi

Klaustroko patioa lorategi bat da, biziki ongi zaindua, **ezpel** inausiek hamazazpigarren mendeko arabesko zoragarri horiek denak osatzen dituztela. Koldo Izagirre

Hesola bat jaso dute **ezpel** -pilaren erdian eta bertan lotu dute andre Madalen. Anjel Lertxundi

Gero, **ezpel-ondo** txuriaren saihetsean zegoen harri xabalaren gainean jarri nintzen. Daniel Landart

Eta bat-batean hobeki konprenitu nuen, zergatik, haurtzaroan bezala, inkontzienteki, **ezpel-ondo** txuriaren saihetsera joan nintzen. Daniel Landart

2 ezpelaren zura.

Hurrengo goiz guztia behar izan zuen lurretik altxatzeko eta basoa zeharkatzeko, **ezpelezko** tenplu erraldoi baten ondotik sorora, eta handik etxe gris-arbelaren atarira. Anton Garikano

Txerri gantza ontzitik hartzen zuen **ezpelezko** paleta batez, apalaren azpian, eta esku leunez kolpe txikiak emanda handituz joan zen gantz pila, pixka bat gainezka egin zuen arte. Karlos Zabala

Urkiak eta **ezpel** hesia atzean zituela, Greziako estatua bat ematen zuen, zut-zutik, lerden, argiz inguratua bezala. Gotzon Garate

Bigarren lur eremua, berriz, jardina zen: bertan, belardiak, **ezpel** -hesiak eta loretokiak ikus zitezkeen, iduri geometrikoetan bilduak eta simetrikoki banatuak. Joan Mari Irigoien

Ezpel -zotzak eta **ezpel** adarrak pilatu dituzte plazaren erdian. Anjel Lertxundi

"Eta" zer den badakigü: holako gaüzatik andana bat düan günea, hala nola *ezpeleta:* **ezpel** günea (Altzain Ezpelünea delako etxea), ezpeldoia (Bereterretx eho züen leküa), **ezpel** oihana ere aski zabal delarik. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta ezpel (3); **ezpelen artean** (3)

---

ezpeletar *izlag/iz* Ezpelatakoa, Ezpeletari dagokiona; ezpeletako herritarra.

IPHARAGUERRE **ezpeletar** bi ahizpak. Herria

Oroit gira duela urtea **ezpeletar** multxo batek pidai xoragarri bat egin zuela Txina-ra, Aita Armand David **ezpeletar** jakintsun haundiaren urratsetan gaindi. Herria

Hor ohoratu da Pierre Halty,bere herriari beti biziki atxikia agertu den **ezpeletar** suharra, haste-hastetik Biperraren kofradian dena. Herria

Ezpeletar kantariak kantu tradizionalak eta abesti garaikideak bildu ditu lehenengo diskoan. Berria - Kultura

Ez dakit gaztaroko "bekatu" horretaz oroitzean, geroztik mundu osoan Justiziaz eta Bakeaz arduratu behar izan den **ezpeletar** adiskidea dolutu ote den, baina nik, hasteko, ez dut behin ere den mendreneko urrikirik izan "pietatezko" urrats hura eginik. Piarres Xarriton

Ezpeletar kardinaleak 80 urteak ixilik ospatzen dituen egun huntan, beste norbaitek herrian omentzen ez dueno (baina nahi ote du berak holakorik?) iduritu zaigu «La Croix» kasetan Yves Pitette apezak egin dion artikulu hunek bederen merezi zuela gure mintzairako irakurleentzat itultzea gure gisan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

errotabehere ezpeletar (6); **errotabehere ezpeletar kantari** (3); **ezpeletar kantari** (4); **ezpeletar kardinaleak** (4); **ezpeletarren pidaia txinan** (5); **maialen errotabehere ezpeletar** (6)

---

ezpere ik **ezperen**.

---

ezperen *(orobat **ezpere**) junt* bestela; bederen.

Ezperen, bat bedi Nafarroa beherearra edo zuberoarra bizkaitarrarekin edo alabesarekin, eta otxagabiarra edo erronkalesa baztandarrarekin eta lau-urtarrarekin, edo zein nahi Eskual Herriko alde batekoa bertze alderdikoarekin, eta ikhusiko duzu elkhar ezin adi dezaketela; aitzitik elkharri idurituko zaizkio eskualdunak direlarik, eztirela hizkuntza berekoak. Ikusi, **ezpere**, nola armiarmak eraikitzen duen berea, bere nahirik nahitsuenen atxikitzeko eta haien sostengatzeko. Joan Mari Irigoien

---

ezpiritu ik **izpiritu**.

---

ezpiritual ik **izpiritual**.

---

ezponda *iz* aldapan dagoen lur zatia, eskuarki harresi baten behealdean edo ubide baten ertzean gertatzen dena, edo lurrak beherantz lerra ez daitezen harriz-edo egiten dena. ik **pendiz**.

Gero, **ezponda** handira heldurik, hortxe dago ibai zabala, mortu, geldi eta isil, eta ibaia baino areago dirudi ur hilen kanposantua. Koldo Biguri

Heriotza burezur-basearen haustura ez-diagnostikatuaren ondorio izan zen, compressio cerebri, **ezponda** txiki hartan izandako erorikoak eragina. Joxe Austin Arrieta

Handik pixka batera, elkarri eskutik oraturik, **ezponda** malkartsuan behera jaitsi ziren, eta, Tom ibaiaren ertzean barrena hiriaren mugaraino joanda, harresiaren zulo bat

zeharkatzeko zoria izan zuten. Karlos Zabala

Bidean atzera egin beharrean, **ezponda** belartsua igan eta belardira irten da. Pello Lizarralde

Ezponda eta makaldi artean, sakantxo batean, baseliza zaharra zegoen, elizatxo txiki bat dorre motz bat zuena. Koldo Biguri

Abuztuko gauetan, poliki-poliki, ilargi gorri handi-handi bat altxatzen da **ezponda** atzetik, aspaldiko garaietako gauza dirudiela. Koldo Biguri

Eskuin aldeko **ezpondak** harresi itxurako bat osatzen zuen leku hartan, harkaitz itzel baten irtengunea zela medio. Karlos Zabala

Otoi egingo nizuke ur handi ikaragarri batzuk bidaltzeko, **ezpondak** lehertu eta herri guztia urpean uzteko modukoak. Koldo Biguri

Urek zubiak irentsi, **ezpondak** apurtu eta meatzeak bete egingo dituzte; etxe, jauregi eta txabolek lur joko dute, eta hondakinen gainean belarra hazi eta dena lur bihurtuko da berriz. Koldo Biguri

"Digue aux chevaux" deitzen den **ezpondaren** aldera joan zirenJoxe **ezpondan** goiti igotzen hasi da, Abel orpoan duela. Ramuntxo Etxeberri

Txerri-taldea **ezpondan** behera aintzirara amildu zen eta ito. Elizen arteko biblia

Errepide probintziala Poren bazterretako **ezpondekin** gurutzatzen den lekuan Ragazzolako etxaldea dago. Koldo Biguri

Abel **ezpondara** igan eta ahuspez etzanda geratu da, zelatan. Pello Lizarralde

Ibai-**ezpondaren** ondoan lurperatu genuen, eta nik lurra zanpatu nuenean eta dena lehenagoko moduan gelditu zenean, aitak kapela erantzi zuen. Koldo Biguri

Ligugnanatik Rosa aldera irteten ziren, Tagliamentoren adar bat lekarro eta elordietatik eskuineko bazterra miaztera zetorren toki intxusa eta zumar itzalez freskatura; eta ibai **ezpondaren** atzean mahastiak, mahatsa grisera bihurtzen ari zela; eta babesaren zementu blokeak, eguzkia hartzeko. Josu Zabaleta

Hiritik berrogei kilometro edo gutxiagora dago; baina, ibai-**ezpondek** mozturik duten ordoki honetan, non ez baita ikusten sasi batetik edo bideko errebueltatik harantzago, kilometro bakoitza hamar adinakoa da. Koldo Biguri

Muino bat zen, babes-**ezponda** baten antzekoa. Joxe Austin Arrieta

Txilarrak ia guztiz estaltzen zuen hondar **ezponda** baten gainean. Txillardegi

Ideia handiak beharrezkoak dira bide berriak irekitzeko, harriak hausteko, itsas **ezpondetako** labarrak lautzeko. Felipe Juaristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta ezpondan (4); **ezponda baten** (7); **ezponda batzu** (4); **ezponda ertzeraino** (4); **ezponda eta** (11); **ezponda gainetik** (3); **ezponda horiek** (3); **ezpondan behera** (5); **ezpondan behera aintzirara** (3)

---

ezproi *(orobat **ezproin** g.er.)* **1** *iz* zaldia akuilatzeko metalezko atala, zaldunak orpoan lotzen duena.

Mikel Strogoffek uniforme militar dotore bat zuen jantzirik, zaldizko ehiztarien ofizialek gudan erabiltzen zutenen antzekoa: botak, **ezproiak**, galtza estu samarra eta jaka kolore arrekoa. gGainerakoek hurbiletik jarraitzen zioten, eta, deh-baschiren ondoan atzeratu gabe, oihuka elkar suspertuz, zaldien saihetsetan **ezproia** sartuz, murrizten ari ziren gutxika-gutxika Mikel Strogoffenganainoko tartea. Karlos Zabala

Han joan zen, **ezproiak** erantzi gabe, bazkari bila. Juan Garzia

Ezproiek zuhaitz azal zerrendak urratzen zituzten. Josu Zabaleta

Militarra da, eta militarrak badakizu: oso trebeak **ezproiei** eragiteko orduan, baina auzitegira jo beharra dagoenean... Jose Morales

Larruzko bota marroiak ditu zilar gorriko **ezproiekin**. Felipe Juaristi

Zaldia, diptero pozoitsu horiek eztenkaturik, saltoka zebilen mila **ezproiren** izar puntadunak saihetsean sartuta legez. Karlos Zabala

Argi entzun zen **ezproien** hotsa, hitz egiten ari zenak orpoak kliskatu balitu bezala. Jose Morales

Aretoan **ezproien** hots erritmikoa entzuten zen. Jose Morales

Atea erdi irekirik zegoen, eta urruneko ahots arrotz ezezagunak eta **ezproien** hots motela iristen ziren bertaraino. Jose Morales

Ezproiekin zaldia adoreturik, mezulariak alde egin zuenean, Saratarrek arnasa hartu zuten lasai. Anjel Lertxundi

Zaldia **ezproiez** jo eta trostan joan zen. Urrezko **ezproiak** bota orpoetan. Fernando Rey

Ezproi-abarrots artean alde egiten zuten urratsen kraskatekoa entzun zen. Juan Garzia

2 irud/hed

Ariete horrek burdina gogorrezkoa zuen **ezproia**, itsasontziek izaten dutenaren antzekoa, eta **ezproi** horretatik burdinazko lau xafla ateratzen ziren, hamabost oin ingurukoak eta egurrean ondo finkatuta. Santiago Iruretagoiena

Lore adinera hel berri den zaldia, maitasun hegodunaren **ezproiak** sastaturik, behor artean berotzen denean eta, sudurrak zabal-zabalik, armetara orro egiten duenean, edo beste zerbaitegatik, lohadarrak dardaran, irrintzia jaurtitzen duenean. Xabier Amuriza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zaldia ezproiez jo (3)

---

ezproidun *izond* ezproia duena.

Ikusi hutsean nekez ezagutuko nukeen gure belaunaldikoen oilolurreko **ezproiduna**. Koldo Izagirre

---

ezproikatu, ezproika(tu), ezproikatzen du *ad* ezproinatu.

Ahoa ireki gabe **ezproikatu** nuen zaldia. Aingeru Epaltza

Norabide egokiaz galdegin eta kabala **ezproikatu** nuen handik lehenbailehen urruntze aldera. Aingeru Epaltza

---

ezproin ik **ezproi**.

---

ezproinatu, ezproina(tu), ezproinazen **1** du *ad* ezproiez jo.

Gero, zaldien ipurmasailetan esku-zarta haserreak jorik, sekulako garrasi batez **ezproinatu** zituen zaldiak-: Axa, zaldiak! Aitzina! Aitzina! Anjel Lertxundi

"Eta ni oso pozik nagon, zer nahi dun esatea", errepikatu eta gero, zaldiak **ezproinatzen** zituen Noraren aitak: [...]. Berria - Kirola

Batzuetan, gauez, bide ondoko ezkutalekuren batean kikildu eta urduri erdi lotan zeuden bitartean, oin ugariren edo krudelki **ezproinaturiko** zaldiren baten lauhazka arinaren zarata edo zurrumurruak entzuten zituzten. Agustin Otsoa

2 irud/hed

Niri beste inori ez dio ardurarik goiz hartan nire bibliofilia **ezproinatu** zuten bitxikeria zaharren aipamenak. Anjel Lertxundi

---

ezpuru *izond* purua ez dena.

Sufre **ezpurua** bereizi beharra daukat. Xabier Aranburu

Zakur mairu hauei buruzko aipamenak, hau da, oraindik mairuekin bizi ziren zakurrei buruzkoak, elkarbizitza hartan animalia guztiz lohi edo **ezpuruak** baziren ere, [...]. Jon Alonso

---

ezpurutasun *iz* sustantzia batean nahasirik dagoen gaia, hari arrotz zaiona.

Likido biologiko batean, odolean esaterako, dauden **ezpurutasunak** mikroporozko mintz batetik iragazarazteko teknika da dialisia. Berria - Gaiak

Horretarako arduraz garbitzen ditut **ezpurutasun** eta anbiguotasun guztiak. Berria - Kultura

---

ezta *junt* aldez aurretik zertu den ezeztatzeari beste zerbait gehitzeko erabiltzen den juntagailua,*eta... ere ez*-ren kide dena. (ikus beheko konbinatorian ezta juntagailuaren agerraldi maizkoenak)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

baina ezta (94); **da ezta** (16); **eta ezta** (278); **eta ezta maryk** (20); **ez nuen ezta** (11); **ezta aipatu** (8); **ezta arrastorik** (8); **ezta ba** (97); **ezta bat** (11); **ezta batere** (17); **ezta beharrik** (11); **ezta beharrik ere** (11); **ezta behin** (13); **ezta behin ere** (11); **ezta bera** (8); **ezta bere** (66); **ezta beste** (40); **ezta bi** (12); **ezta egun** (12); **ezta ere** (164); **ezta euskal** (8); **ezta ezer** (13); **ezta gure** (13); **ezta gutxiago** (53); **ezta gutxiago ere** (52); **ezta gutxiagorik** (49); **ezta gutxiagorik ere** (49); **ezta haien** (11); **ezta hain** (10); **ezta hala** (8); **ezta halako** (8); **ezta haren** (33); **ezta herri** (8); **ezta hitz** (13); **ezta hitzik** (10); **ezta hori** (31); **ezta hori ere** (29); **ezta horren** (8); **ezta hurrik** (69); **ezta hurrik eman** (62); **ezta inoiz** (8); **ezta inondik** (25); **ezta inondik ere** (23); **ezta jakin** (8); **ezta lehen** (9); **ezta maryk** (20); **ezta maryk kristoren** (20); **ezta minutu** (8); **ezta nahi** (14); **ezta nahi ere** (12); **ezta neuk** (9); **ezta neuk ere** (9); **ezta neure** (12); **ezta ni** (15); **ezta ni ere** (8); **ezta nik** (25); **ezta nik ere** (20); **ezta nire** (31); **ezta noiz** (9); **ezta orain** (12); **ezta pentsatu** (139); **ezta pentsatu ere** (137); **ezta zein** (16); **ezta zer** (15); **ezta zure** (13); **nahi ezta** (27); **nuen ezta** (11); **zen ezta** (10)

---

eztabada ik **eztabaida**.

---

eztabadabide ik **eztabaidabide**.

---

eztabadagai ik **eztabaidagai**.

---

eztabadagarri ik **eztabaidagarri**.

---

eztabadagune ik **eztabaidagune**.

---

eztabadaka ik **eztabaidaka**.

---

eztabadaño ik **eztabaidaño**.

---

eztabadatu ik **eztabaidatu**.

---

eztabaida *(ETCn **64.924** agerraldi; orobat **eztabada** ETCn **1.034** agerraldi) iz* **1** gairen bati buruz iritzi desberdinak dituzten pertsonen arteko jarduna edo hitzezko liskarra. (ik beheko konbinatorian eztabaida izenaren agerraldi maizkoenak)

2 ***eztabaidan*** *adlag* eztabaidatzen.

Neskak esnea esnebiltokira eramateko orrazten diren bitartean, sukaldeak jendez beteta, hizketan, **eztabaidan**, abesten ari diren orduan. Josu Zabaleta

Israelgo leinu orotan jendea **eztabaidan** ari zen, esanez: [...]. Elizen arteko biblia

Eztabaidan aritu ziren kontu haren gainean; gaskoiak, ikasiagoa baitzen, argudio hobeak ematen zituen. Koro Navarro

Irakasleak mendeetan zehar ariko dira nik esan nahi izan dudanaren inguruan **eztabaidan**, horrenbeste enigma eta puzzle sartu ditut nobela honen barruan. Berria - Kultura

Errusiarra jatorriz, aukera izan zuen, bere garaian, luze aritzeko Lyssenkorekin **eztabaidan**. Juan Garzia

Gure ama konturatu egin zen eta **eztabaidan** hasi nahi izan zuen. Pello Lizarralde

Frantzisko dohatsuak ez zuen haiekin **eztabaidan** jardun nahi izan, larriki gaixo eta heriotzatik gertu zegoelako. Koro Navarro

Greko-hizkuntzako juduekin ere hizketan eta **eztabaidan** jarduten zuen; baina haiek Saulo hiltzeko asmotan zebiltzan. Elizen arteko biblia

Lizentzia hori ukatzen dute -nik parte hartu nuen hemen- **eztabaidan** dihardutenek ez egiaren bila, agudeziaren harrokeria txoroak eraginda baizik. Imanol Unzurrunzaga

Baina nik Ahaltsuari hitz egin nahi diot, Jainkoarekin egin nahi dut **eztabaidan**. Elizen arteko biblia

Neure jaunaren ganbarako ate aurrean egon naiz ordu luzeetan ezer egin gabe, Gandalfekin eta Printzearekin eta beste handi batzuekin **eztabaidan** ibili den bitartean. Agustin Otsoa

Mespretxuz erreparatzen zien egunkari zaharrez, xake pieza hautsiez eta hautsontzi zigarrokinez beteez estalitako mahaiei, zeinetan egoten baitziren beti klubeko kideak, beren ahots oihulariez literaturaz **eztabaidan**. Koro Navarro

Orduak pasa genitzakeen **eztabaidan**. Jon Muñoz

Hiru egun geroago aurkitu zuten **eztabaidan** tenpluan, eta maisuen artean eserita. Patxi Altuna

Gurasoak **eztabaidan** sentitzen nituen. Anjel Lertxundi

Aitaren saltokian ere ikusi izan dut inoiz, merkatarien artean, garai txarrez eta negozioen moteltzeaz **eztabaidan**. Urtzi Urrutikoetxea

Alditxo batez **eztabaidan** geratu ziren gurdibidean, gero zapatak eta galtzerdiak erantzi eta galtza barrenak bildu zituzten. Koldo Biguri

Geroxeago, mutila biltzen zaio, eta leihoaren azpian geratuko dira biak, beren presoari begira, haren patuaz **eztabaidan**. Oskar Arana

Bakarrik utzi zuten Galois, bere ziurtasunekin **eztabaidan**. Jon Muñoz

Piketeekin **eztabaidan**. Berria - Ekonomia

Jesus juduekin **eztabaidan**. Elizen arteko biblia

Eztabaidan beti. Iñaki Iñurrieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

alderdien arteko eztabaida (6); **artean eztabaida** (29); **arteko eztabaida** (94); **atzoko eztabaida** (6); **aurrekontuen eztabaida** (8); **baina eztabaida** (24); **barne eztabaida** (23); **benetako eztabaida** (33); **benetako eztabaida ez** (6); **berriaren eztabaida** (6); **beste eztabaida** (19); **beste eztabaida bat** (8); **betiko eztabaida** (6); **bi eztabaida** (7); **bigarren eztabaida** (9); **buruz eztabaida** (8); **buruzko eztabaida** (250); **buruzko eztabaida piztu** (8); **da eztabaida** (67); **dago eztabaida** (10); **dagoen eztabaida** (15); **dela eztabaida** (7); **den eztabaida** (58); **dira eztabaida** (11); **diren eztabaida** (19); **du eztabaida** (33); **duen eztabaida** (25); **dute eztabaida** (13); **duten eztabaida** (6); **edo eztabaida** (9); **egoerari buruzko eztabaida** (12); **elkarrizketa eta eztabaida** (6); **ere eztabaida** (31); **ereduari buruzko eztabaida** (11); **estatutu proposamenaren eztabaida** (8); **eta eztabaida** (215); **eta eztabaida piztu** (6); **etorkizunari buruzko eztabaida** (9); **eusko legebiltzarrean eztabaida** (7); **eusko legebiltzarreko eztabaida** (7); **ez da eztabaida** (9); **ez du eztabaida** (6); **ez eztabaida** (7); **eztabaida abiatu** (7)

eztabaida amaitu (13); **eztabaida antzua** (7); **eztabaida asko** (16); **eztabaida bat** (71); **eztabaida bat izan** (6); **eztabaida batean** (21); **eztabaida baten** (24); **eztabaida baten ondoren** (8); **eztabaida beharrezkoa** (8); **eztabaida bera** (8); **eztabaida berpiztu** (6); **eztabaida berriz** (7); **eztabaida bertan** (6); **eztabaida betean** (6); **eztabaida bizi** (13); **eztabaida bizia** (27); **eztabaida bizia izan** (6); **eztabaida bizia sortu** (7); **eztabaida biziak** (7); **eztabaida bultzatu** (10); **eztabaida da** (25); **eztabaida daiteke** (11); **eztabaida demokratiko** (6); **eztabaida demokratikoa** (7); **eztabaida egin** (35); **eztabaida egin zuten** (7); **eztabaida egingo** (16); **eztabaida egingo dute** (7); **eztabaida egitea** (10); **eztabaida egiteko** (16); **eztabaida egiten** (10); **eztabaida eragin** (7); **eztabaida ere** (17); **eztabaida eta** (139); **eztabaida eta bozka** (8); **eztabaida etikoa** (7); **eztabaida ez** (66); **eztabaida ez da** (31); **eztabaida faltsua** (6); **eztabaida franko** (9); **eztabaida gai** (7); **eztabaida gehien** (11); **eztabaida gehien eragin** (7); **eztabaida gogor** (12); **eztabaida gogor baten** (8); **eztabaida gogorra** (6); **eztabaida gogorrak** (10); **eztabaida gune** (7); **eztabaida guztiak** (11); **eztabaida handia** (35); **eztabaida handia izan** (8); **eztabaida handia sortu** (13); **eztabaida handiak** (7); **eztabaida handirik** (6); **eztabaida hartan** (9); **eztabaida hasi** (22); **eztabaida hasi aurretik** (6); **eztabaida hasiko** (8); **eztabaida hau** (16); **eztabaida honen** (6); **eztabaida honetan** (16); **eztabaida hori** (61); **eztabaida horiek** (13); **eztabaida horien** (6); **eztabaida horietan** (10); **eztabaida horrek** (12); **eztabaida horren** (21); **eztabaida horretan** (41); **eztabaida hura** (6); **eztabaida ireki** (11); **eztabaida irekia** (17); **eztabaida irekia eta** (6); **eztabaida irekita** (7); **eztabaida irekitzeko** (7); **eztabaida iturri** (12); **eztabaida izan** (55); **eztabaida izan da** (9); **eztabaida izan zuten** (11); **eztabaida izango** (19); **eztabaida izango da** (7); **eztabaida luze** (21); **eztabaida luze baten** (7); **eztabaida luzea** (17); **eztabaida luzea izan** (9); **eztabaida luzeak** (12); **eztabaida mahai** (7); **eztabaida mamitsua** (6); **eztabaida nagusia** (9); **eztabaida oso** (8); **eztabaida parlamentarioan** (9); **eztabaida pil** (10); **eztabaida pil pilean** (10); **eztabaida piztea** (10); **eztabaida piztu** (82); **eztabaida piztu da** (14); **eztabaida piztu du** (17); **eztabaida piztu nahi** (6); **eztabaida piztu zen** (12); **eztabaida politiko** (26); **eztabaida politikoa** (63); **eztabaida politikoak** (15); **eztabaida politikoan** (23); **eztabaida politikoaren** (28); **eztabaida politikoari** (8); **eztabaida prozesu** (7); **eztabaida prozesua** (12); **eztabaida prozesuan** (12); **eztabaida publiko** (9); **eztabaida publikoa** (16); **eztabaida sakon** (6); **eztabaida sakona** (13); **eztabaida sakonak** (6); **eztabaida sortu** (52); **eztabaida sortu da** (13); **eztabaida sortu du** (10); **eztabaida sortu nahi** (6); **eztabaida sortu zen** (8); **eztabaida sortzea** (6); **eztabaida sortzen** (15); **eztabaida sustatzeko** (6); **eztabaida sutsu** (7); **eztabaida sutsua** (21); **eztabaida sutsua izan** (6); **eztabaida sutsuak** (8); **eztabaida sutsuan** (6); **eztabaida ugari** (14); **eztabaida zabala** (6); **eztabaida zabaldu** (9); **eztabaida zaharra** (6)

gabeko eztabaida (10); **gaineko eztabaida** (48); **gaurko eztabaida** (6); **genuen eztabaida** (8); **gero eztabaida** (6); **gizarte eztabaida** (17); **gizartean eztabaida** (12); **gogoeta eta eztabaida** (11); **gure eztabaida** (8); **hainbat eztabaida** (15); **honek eztabaida** (6); **honetan eztabaida** (7); **horrek eztabaida** (17); **horren inguruko eztabaida** (9); **horri buruzko eztabaida** (10); **inguruan eztabaida** (28); **inguruko eztabaida** (189); **inguruko eztabaida piztu** (16); **inguruko eztabaida sortu** (6); **izandako eztabaida** (24); **legebiltzarrean eztabaida** (10); **legebiltzarreko eztabaida** (11); **lehen eztabaida** (15); **mintzaldi eztabaida** (29); **mintzaldi eztabaida bat** (6); **nazio eztabaida** (14); **osoko zuzenketen eztabaida** (10); **planaren eztabaida** (14); **proposamenaren eztabaida** (12); **sortu den eztabaida** (9); **sortutako eztabaida** (9); **zen eztabaida** (36); **ziren eztabaida** (10); **zuen eztabaida** (39); **zuten eztabaida** (17); **zuzenketen eztabaida** (21)

arteko eztabaidak (22); **baina eztabaidak** (6); **barne eztabaidak** (6); **buruzko eztabaidak** (26); **den eztabaidak** (7); **dira eztabaidak** (12); **diren eztabaidak** (11); **eta eztabaidak** (41); **eztabaidak aurrera** (9); **eztabaidak eta** (38); **eztabaidak ez** (22); **eztabaidak ez duela** (6); **eztabaidak izan** (13); **eztabaidak izaten** (9); **eztabaidak sortu** (8); **gaineko eztabaidak** (7); **inguruko eztabaidak** (22); **nazio eztabaidak** (8); **sekulako eztabaidak** (6); **ziren eztabaidak** (9)

arteko eztabaidan (7); **buruz eztabaidan** (9); **buruzko eztabaidan** (40); **da eztabaidan** (6); **den eztabaidan** (13); **dira eztabaidan** (8); **ere eztabaidan** (6); **eta eztabaidan** (21); **ez zuen eztabaidan** (9); **eztabaidan ari** (52); **eztabaidan ari dira** (6); **eztabaidan ari zen** (7); **eztabaidan ari zirela** (6); **eztabaidan ari ziren** (12); **eztabaidan aritu** (19); **eztabaidan aritu ziren** (6); **eztabaidan aritzen** (9); **eztabaidan eta** (13); **eztabaidan ez** (15); **eztabaidan hasi** (39); **eztabaidan hasi nahi** (8); **eztabaidan hasi ziren** (9); **eztabaidan hasiko** (7); **eztabaidan hasteko** (17); **eztabaidan jardun** (8); **eztabaidan parte** (69); **eztabaidan parte hartu** (18); **eztabaidan parte hartuko** (9); **eztabaidan parte hartzea** (9); **eztabaidan parte hartzeko** (12); **eztabaidan parte hartzera** (7); **eztabaidan sartu** (11); **haiekin eztabaidan** (6); **harekin eztabaidan** (7); **inguruko eztabaidan** (15); **legebiltzarreko eztabaidan** (12); **nazio eztabaidan** (7); **orokorreko eztabaidan** (11); **politika orokorreko eztabaidan** (11); **proposamenaren eztabaidan** (11); **zen eztabaidan** (13); **ziren eztabaidan** (12); **zuen eztabaidan** (15); **zuten eztabaidan** (7); **zuzenketen eztabaidan** (7)

buruzko eztabaidaren (7); **buruzko eztabaidari** (6); **buruzko eztabaidari** (6); **den eztabaidaren** (6); **eta eztabaidarako** (16); **eta eztabaidaren** (11); **eztabaidaren erdian** (8); **eztabaidaren muina** (7); **eztabaidaren ondoren** (14); **eztabaidaren ondotik** (6); **eztabaidari ekin** (10); **eztabaidari ekin** (10); **eztabaidari ekiteko** (9); **eztabaidari ekiteko** (9); **inguruko eztabaidaren** (7); **zuzenketen eztabaidarekin** (7)

---

eztabaidabide *(corpusean **eztabadabide** soilik)* *iz* eztabaidarako bidea.

Egundainokotan hori ere **eztabadabide** Auzapezaren kontrakoen arabera, ez da arrazoinik lau edo bost hilabete aintzina igurikatzeko. Herria

Iduritzen zaiote elkarte berria, Jean-Jacques Lasserredepartamenduburua sustatzaile, egina dela 2x2 errebide handiaren alde, proiektu hori, **eztabadabide** duguna bulta huntan, abantzarazteko. Herria

Zernahi gisaz haatik, lur tratu hori **eztabadabide** dago, eta nundik ez da hala izanen? Herria

---

eztabaidaezin **1** *izond* ezin eztabaidatuzkoa.

Hau ez zen egia **eztabaidaezina**, baina nor zen laburbiltzeko balio zuen. Jon Alonso

Teknologia nuklearra eskubide **eztabaidaezina** da eta nazioarteak onartu egin behar du. Berria - Mundua

Modu **eztabaidaezinean** erakusten dut herritarrak bere printze kristauari zor dion obedientzia ez doala, inola ere, kristau erlijioaren kontra. Esteban Antxustegi

Aurrerago aipatu den Entropiaren lege **eztabaidaezina**, azken batean. Fernando Morillo

-Gaituzte -esan zuen Amaiak, epai **eztabaidaezinarekin**. Fernando Morillo

Hantxe, froga erantzunezina eta **eztabaidaezina**! Joan Mari Irigoien

Azkenaldiko gainbehera militarra bat-batean egiaztatzea, guduan menderatua izatearen logika **eztabaidaezinaren** bidez, harrigarria bezain umilagarria zen haientzat. Iñaki Mendiguren

Egia da badituela, bere joera politikoaz gain, beste dohain batzuk **eztabaidaezinak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitz suharrak Cartierrenak, irudiz **eztabaidaezinak**. Xabier Montoia

Espainiaren batasun **eztabaidaezinaren** printzipioa dibertsitatearen aitorpenarekin bateragarria dela. Berria - Euskal Herria

Etxera ailegatzean benetakoa eta **eztabaidaezina** den egoera zentzugabe bera topatu dut: [...]. Joseba Sarrionandia

Nabaria da eta **eztabaidaezina** Batasunak erantzukizun handiagoa duela ezker abertzalea deritzon multzoarekiko. Berria - Euskal Herria

Bazekiten, besteak beste, Espainiako subironatasun bakarraren eta nazio espainiarraren zatiezintasunaren irizpideak **eztabaidaezinak** zirela, ukiezinak. Berria - Euskal Herria

Orduan, balio moralen absolututasunak (hau **eztabaidaezina** da Hartmannentzat) ateismoa postularazten du. Joxe Azurmendi

2 *eztabaidaezinezko* *izlag*

Gero, beren ibilera jarraituko dute, **eztabaidaezinezko** zintasunez, harik eta laster berriz ere estropezu egin eta ahozpez jausi arte. Joseba Sarrionandia

---

eztabaidaezintasun *iz* eztabaidaezina denaren nolakotasuna.

Legaltasuna errespetatu behar hori ez al da, azken batean, Espainiaren subiranotasun bakarraren **eztabaidaezintasuna** onartzea? Berria - Euskal Herria

---

eztabaidagabe *izond* eztabaidarik ez duena.

Bere ahalmen osoaren kalkulu osoak eta bertatik sortzen den jabego txiki baten ziurtasunaren uste osoak [...] gatazka oro bukatzen du eta jabego zedarriztatu baina **eztabaidagabea** baketsuki onartzearekin askiestera bultzatzen du. Ibon Uribarri

---

eztabaidagai *(orobat **eztabadagai**)* **1** *iz* eztabaidatzeko edo eztabaidarako gaia.

Pedro Abelardok asmatutako metodoa da, XII. mendean *Sic et non* obrarekin: **eztabaidagai** (latinez *quaestio*) baten inguruan aldeko eta kontrako autoreen iritziak jaso eta,

kontrastatu ondoren, norberaren ahaleginez argitasun gehiago lortzen saiatzea. Askoren artean

Koordinadoraren ustez, **eztabaidagaia** ez da errauste plantaren kokagunea, baizik eta «hiri hondakin solidoak tratatzeko metodoa bera». Berria - Euskal Herria

Autismoaren kausa ere **eztabaidagai** izan da. Xabier Olarra

Gure ikerketaren xederako, has gaitezen suposatuz **eztabaidagai** dela ea "naturaren legeek" inolako zereginik duten zibilizazio-prozesuan dagoen gizakiaren historian. Iñaki Mendiguren

Jardunaldiotan, besteak beste, bi herrien autogobernua eta **eztabaidagai** dituzten estatutu berriak aztertzen ari dira. Berria - Euskal Herria

Honek zirudien **eztabaidagai**: ea Mendebaldeko kultura leku batean sustraituta geratuko ote zen, atzera begiratu eta "antzinakoen" mirespenez eta imitazioz mugitu ezinik, edota aurrera egin behar ote zuen ezezagunerantz, "antzinakoak" atzera utzita. Iñaki Mendiguren

Guk horietako **eztabaidagaietako** bati heldu diogu, hots, gizarteak zientziarekiko eta teknologiarekiko izan beharko lituzkeen harremanei buruzkoari. Askoren artean

Eztabaidagai bilakatu den kontua da hau. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bera da eztabaida guztien erruduna, baina ez **eztabaidagaia**! Josu Zabaleta

EAEko Lurzoruaren Lege proiektua izango da gaur **eztabaidagai** Eusko Legebiltzarrean. Berria - Euskal Herria

Eztabaidagaiak: Lau urteko balantzea, hurrengo lau urteotako txosten politikoa, eta alderdiaren Estatutuak. Berria - Euskal Herria

2 (izenondoekin eta izenlagunekin)

Ezin da zalantzan jarri ZTG ikasketek **eztabaidagai** berriak planteatu dizkiotela mundu akademikoari. Askoren artean

Edozein afalondotarako **eztabaidagai** polita litzateke. Andoni Egaña

Ehizarena ez da Cannelleren aferan **eztabaidagai** nagusia. Berria - Euskal Herria

Baina ez zen **eztabaidagai** bakarra izan. Berria - Euskal Herria

Otoitza eta Eskritura Sainduen irakurketa publikoa, horra lehen **eztabaidagaia**. Aingeru Epaltza

Hala bada, hortxe dago **eztabaidagaia**, beste asko bezain alferrikakoa. Edorta Jimenez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko eztabaidagai (6); **atzo eztabaidagai** (4); **dira eztabaidagai** (9); **dituzte eztabaidagai** (3); **dute eztabaidagai** (9); **ere eztabaidagai** (8); **eta eztabaidagai** (5); **eztabaidagai bakarra** (3); **eztabaidagai bihurtu** (3); **eztabaidagai da** (3); **eztabaidagai izan** (23); **eztabaidagai izan da** (5); **eztabaidagai izan zuten** (3); **eztabaidagai izango** (12); **eztabaidagai izango dira** (3); **eztabaidagai jarriko** (3); **eztabaidagai jarriko dute** (3); **eztabaidagai nagusia** (14); **eztabaidagai nagusiak** (6); **izan dute eztabaidagai** (4); **izan zuten eztabaidagai** (3); **izango dira eztabaidagai** (4); **izango dute eztabaidagai** (3); **legebiltzarrean eztabaidagai** (3); **zuten eztabaidagai** (4)

---

eztabaidagaitz *izond* nekez eztabaida daitekeena, ia ezin eztabaidatuzkoa.

Beren modu **eztabaidagaitz** hartan itaunketa egingo zigutela eta bertan fusilatuko gintuztela agindurik, gure inguruan arranditsu kokatu ziren, eta han abiatu ginen mendatera bidean. Juan Garzia

---

eztabaidagarri *(orobat **eztabadagarri**) izond* eztabaida daitekeena.

Beti legearen gardentasuna ororen gainetik jartzen duten horiek berak izan dira legearen hala-holako interpretazio **eztabaidagarri** bat egin dutenak Nafarroaren eta EAEren arteko lotura guztiak desegiteko orduan. Pello Salaburu

Oro har, baieztapen edo tesi **eztabaidagarrien** kontra egiten dira judizioak. Askoren artean

Ilusio partzialaren ideia hau aski **eztabaidagarria** da, zeren esan baitaiteke kontraesanak dituela bere baitan. Josu Zabaleta

Ordezkariaren erantzuna irrigarria iruditu zitzaion, ez hainbeste auziaren mamiari buruzkoan, hori guztiz **eztabaidagarria** baitzen, erantzunak berarekin zekarren hitz-jokuarengatik baizik. Jon Alonso

Proposamen kartesiarrean puntu asko **eztabaidagarriak** dira. Askoren artean

Berreraikitako forma batzuk ziur-ziurrak dira, beste batzuk **eztabaidagarriak** edo onartzeko zailak. Isabel Arrigain

Ez da dudarik urteek zorroztu didaten ikusmena bera ere, nire-nirea izanik, **eztabaidagarria** eta kritikagarria dela, segur bainaiz bakoitzaren esperientzia pertsonala, nornahi ere den hau, ezin dela besterengana hedatu. Pello Salaburu

Xehetasun aldakorregi eta **eztabaidagarriegiak** ere ez doazkio legegileari, jurisprudentziari baino. Andres Urrutia

Mitxelenaren aipu luzeak darabilen gorputzaren eta isatsaren konparazioa du **eztabaidagarriena**: [...]. Anjel Lertxundi

Puntu hau **eztabaidagarrienetakoa** gerta daiteke S.-ren teorian. Isabel Arrigain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski eztabaidagarria (4); **aski eztabaidagarria da** (3); **batzuk eztabaidagarriak** (3); **ere eztabaidagarria** (3); **eztabaidagarri bat** (3); **eztabaidagarria da** (26); **eztabaidagarria dela** (5); **eztabaidagarria eta** (3); **eztabaidagarria izan** (7); **eztabaidagarria izan zen** (4); **eztabaidagarriak dira** (5); **hori eztabaidagarria** (4)

---

eztabaidagune *(orobat **eztabadagune**) iz* eztabaidatzeko gunea.

Hitza haserrebidea eta **eztabaidagunea** besterik ez zen haientzat, eta isiltasuna, aldiz, mendian hego haizea pil-pil zebilenean, beste hots hura entzuteko baldintza, zorionarena, alegia. Pako Aristi

Sustatu **eztabaidagunean** aipatu da kontua, eta gorabeherak izan dira, ea zein den jatorrizkoa benetan, gaztelaniazkoa ala euskarazkoa. Berria - Kultura

Bilkura hurrengo ostiral arte izango da; bitarte horretan, 200 hitzaldi eta **eztabaidagune** baino gehiago izango dira. Berria - Kultura

Gobernuetatik eta alderdietatik kanpoko **eztabaidagune** bat bezala jaio zen erakundea. Berria - Mundua

Unitate epistemikoen (kontzeptuaren, legearen, teoriaren) inguruko gaiak **eztabaidagune** berrietan gauzatzen dira. Askoren artean

Ez zait iruditzen desegokia, gurearen ez oso bestelako larrialdi batean, Max Weber-ek nola arrazoitu zuen aulak **eztabaidagune** politiko bihurtzearen aurka. Joxe Azurmendi

Hizkuntza gutxituei buruzko **eztabaidagune** bakarra izan da hau Gizarte Foroan. Berria - Mundua

Liburutegien sarea da bigarren **eztabaidagune** nagusia. Berria - Kultura

Lehen aurkezpena datorren urriaren 8an egingo dute, Zarautzen (Gipuzkoa), Nazio **Eztabaidaguneak** egun horretan antolatu duen egitarauaren barruan. Berria - Harian

Internauta batek eztabaida bitxia abiatu du *Le Monde*-ren **eztabaidagunean**. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dio nazio eztabaidaguneak (3); **donostia nazio eztabaidaguneak** (3); **du eztabaidaguneak** (6); **du nazio eztabaidaguneak** (11); **du nazio eztabaidagunean** (3); **eta eztabaidagune** (4); **eta nazio eztabaidagunea** (3); **eta nazio eztabaidaguneak** (6); **eta nazio eztabaidagunean** (3); **eta nazio eztabaidagunearen** (3); **eztabaidagunea abiatzea** (3); **eztabaidagunea erabaki** (3); **eztabaidaguneak aberri** (3); **eztabaidaguneak bere** (5); **eztabaidaguneak egin** (7); **eztabaidaguneak egin duen** (6); **eztabaidaguneak egindako** (4); **eztabaidaguneak euskal** (4); **eztabaidaguneak euskal herriko** (3); **eztabaidaguneak gatazkaren** (4); **eztabaidaguneak orain** (3); **eztabaidaguneak proposatutako** (5); **eztabaidagunean ere** (4); **eztabaidagunean eta** (4); **eztabaidagunean parte** (11); **eztabaidagunean parte hartu** (4); **eztabaidagunean parte hartzeko** (3); **eztabaidagunearen lana** (5); **eztabaidagunearen osoko** (3); **eztabaidagunearen proposamenak** (5); **eztabaidaguneko bozeramailea** (5); **eztabaidaguneko talde** (9); **eztabaidaguneko talde sustatzaileak** (3); **eztabaidaguneko talde sustatzaileko** (5); **martin aranburu eztabaidaguneko** (3); **nazio eztabaidagunea** (36); **nazio eztabaidagunea abiatzea** (3); **nazio eztabaidaguneak** (103); **nazio eztabaidaguneak aberri** (3); **nazio eztabaidaguneak bere** (3); **nazio eztabaidaguneak egin** (4); **nazio eztabaidaguneak egindako** (4); **nazio eztabaidaguneak proposatutako** (5); **nazio eztabaidagunean** (42); **nazio eztabaidagunean ere** (4); **nazio eztabaidagunean eta** (4); **nazio eztabaidagunean parte** (8); **nazio eztabaidagunearen** (51); **nazio eztabaidagunearen lana** (3); **nazio eztabaidagunearen osoko** (3); **nazio eztabaidagunearen proposamenak** (5); **nazio eztabaidagunearena** (4); **nazio eztabaidaguneari** (9); **nazio eztabaidaguneko** (23); **nazio eztabaidaguneko talde** (7); **nazio eztabaidagunetik** (10); **zen nazio eztabaidagunea** (3); **zuen nazio eztabaidaguneak** (4)

eztabaidaka *(orobat **eztabadaka**) adlag* eztabaidatuz.

Eztabaidaka hasi ginen, anai-arreba guztiok eseri nahi genuelako aurreko aldean. Mikel Hernandez Abaitua

Norbaitek **eztabaidaka** hasi nahi balu, jakin beza, guk ez dugula horrelako ohiturarik eta Jainkoaren eliz elkarteek ere ez. Elizen arteko biblia

eztabaidaleku *iz* eztabaidatzeko lekua.

Ituna dagoen bezala ondo dagoela esan zuen PSOEren bozeramaile Alfredo Perez Rubalcabak, baina gainerako alderdi politikoek parte hartzeko **eztabaidalekua** antolatzearen alde hitz egin zuen. Berria - Euskal Herria

Halako **eztabaidalekuek** ezertarako balio ez dutela uste du San Gilek, eta gizartearen «alde batekin bakarrik» elkartzea leporatu zion PPko eledunak Ibarretxeri. Berria - Euskal Herria

eztabaidan ik **eztabaida 2**.

eztabaidaño *(corpusean **eztabadaño** soilik) iz ipar* eztabaidatxoa.

Eztabadaño bat piztu da haatik horren gainetik. Herria

Gisa guziz, horrek ez du gauza handirik kanbiatzen bainan **eztabadaño** batzu aintzina hazten. Herria

Hortaz izan da **eztabadaño** bat. Herria

Denik ere **eztabadaño** batzu ukan dituzte elkarteeri emaiten diren diru laguntza horien gainetik. Herria

eztabaidarazi, eztabaidaraz, esztabaidarazten du *ad* eztabaidatzera behartu.

Belarri handitasuna du ezaugarri, eta horrek naturalista zenbaiti hegaldatzeko ahalmena **eztabaidarazi** dien arren, Morse eta Whitney irakasleek pentsamenduaren ildo desberdinetatik zorroztasunez ohartarazi dutenez, dohain hori izan balu, beste edozein tokitara hegaldatua izango zen honezkero. Xabier Olarra

eztabaidatsu *izond* eztabaida pizten duena, eztabaidaz betea.

Vidor-en obra **eztabaidatsua**, gainera, Mar zinematoki berria estreinatu eta gutxira eman zen. Josu Landa

Castrori egindako elkarrizketan gai **eztabaidatsuak** jorratu ditu: uhartetik ihes egin nahi zuten hiru gazteren exekuzioa, intelektual disidenteen espetxeratxea eta George Bushen gobernuarekiko harreman iskanbilatsuak. Berria - Kultura

Gai **eztabaidatsuenak** izan zitezkeenak azkenean ia eztabaidatu gabe gelditu ziren. Berria - Ekonomia

Batzarra jendetsua, **eztabaidatsua** eta luzea izan zen. Berria - Euskal Herria

Sarritan esaldi bakar batez argitzen zituen arazo **eztabaidatsuak**, eta, hitzetan trebe ez bazen ere, argi erakusten zuen bere ulermena eta indarra. Askoren artean

Ñabardurok, bestalde, txit **eztabaidatsu** eta aldakor suertatzen dira, lege testuaren objektu izateko adina, behinik behin. Andres Urrutia

Ondarearen alorrean, museoen eta liburutegien sarea da, aspaldian, gairik **eztabaidatsuena**. Berria - Kultura

Ikusmolde honen azalpenik **eztabaidatsuena** eta liskartsuena. Josu Zabaleta

eztabaidatu, eztabaida(tu), eztabaidatzen *(orobat **eztabadatu**)* **1** du/da *ad* eztabaidan aritu edo jardun.

Batek nahi ez duenean bik ez dutela **eztabaidatzen**. Jon Alonso

Edukiaren gehiena Morris Hallerekin **eztabaidatu** dut, eta onura handia atera dut haren iruzkin eta iradokizunetatik. Itziar Laka

Zer deritzozue, eskolan, Unibertsitatean, irakasleok **eztabaidatu** egin behar ote genituzke gaiok? Aisialdiak, alde batetik, politikaz **eztabaidatzera** eramaten ditu; bestetik, historia, oratoria, politika eta antzeko liburuen irakurketa errazera. Joxe Azurmendi

Alta bada, ez dut nik egundaino hitzik erran Nafarroaz, ez Erregeen artean **eztabaidatzen** diren beste erreinu batzuez. Piarres Xarriton

Ez dago inolako arrazoi logikorik, arazo konkretu mugatu bat modu absolutuan **eztabaidatu** nahi izateko. Joxe Azurmendi

Menard-ek, proposatu, gomendatu, **eztabaidatu**, eta azkenean arbuiatu egiten du berrikuntza hori. Juan Garzia

Analizatzea ez da deskribapenaren sinonimo hutsa, zerbait gehiago baizik: juzgatzea, erkatzea, baloratzea, kontrastatzea, kritikatzea, aztertzea, **eztabaidatzea**... Horretan guztian datza hain zuzen analisia. Askoren artean

Profanatua zegoen erre-oparietarako aldarearekin zer egin **eztabaidatu** zuten. Elizen arteko biblia

Ez dut ulertzen nire gurasoek eta senideek zergatik **eztabaidatzen** zuten hain modu sutsuan. Fernando Rey

Gelditu eta simaur harekin zer egin **eztabaidatzen** hasi ziren. Askoren artean

Zaintza, dena dela, berarentzat izango zen, hori ez zegoen **eztabaidatzerik**. Iban Zaldua

Bitartean auzi garrantzizkoak **eztabaidatzen** ari dira, esaterako ea nortzuk osatuko dituzten txalupetako eskifaiak. Jon Alonso

Noiz daude balioak eztabaidan, eta zer **eztabaidatzen** da zehatz-mehatz, balioak **eztabaidatzen** omen direnean? Joxe Azurmendi

Argumentu eta kontra-argumentu hauek guztiak, bai eta hamaika berri, albiste eta zurrumurru ere, patioan etengabe **eztabaidatzen** ziren, behin eta berriz desegin eta atzera osatzen ziren talde txiki edo handiagoetan. Urtzi Urrutikoetxea

Definizio bat **eztabaidatzen** bazaio, ez daki nondik atera behar duen beste bat. Ibon Uribarri

Euskaltzaindiak lau batzar antolatu zituen txostena **eztabaidatu** eta erabakiak hartzeko. Koldo Zuazo

Eskatzen zena **eztabaidatzeko** eskubide osoa zen. Itxaro Borda

Bada **eztabaidatu** ezin den errealitate geografiko bat, Eurasia izenekoa. Iñaki Mendiguren

Descartesen ustez **eztabaidatu** ezinezkoa izan behar du justifikazioak. Askoren artean

Nagusiaren aginduak ezin **eztabaidatuzkoak** ziren. Jon Muñoz

Galde egin daiteke, ea **eztabaidaturiko** gaiak nola ekar zezakeen hebrearren aldetik era horretako itaunik, eta Moisesek nola erantzun behar zuen galde egiteko punturaino. Xabier Kintana

Eztabaidatutako gaiak oso politikoak dira. Rafa Egiguren

Martxoaren 17an ekingo diete berriz elkarrizketei, hainbat gai tekniko **eztabaidatze** aldera. Berria - Mundua

2 (adizlagunekin)

Planteamendua razionalki egin eta razionalki **eztabaidatu**, egin liteke, eta beti halaxe egin da, etika tradizionalenean ere, indargintza legitimoaren baldintzak eta neurriak zehazten saiatuz. Joxe Azurmendi

Gezurra onartzen duenak huts egiten duela diote, eta zorrozki eta lotsagabeki **eztabaidatzen** dute gizakien pertzepzioetan ez dagoela deus egiazkorik. Imanol Unzurrunzaga

Nola arrazoitu, arazo politikoak pasionatuki **eztabaidatzen** ari, baina egiazki beti bilatzen dena, metafisika bada? Joxe Azurmendi

Bi puntu hauei ez diet zentralak irizten nire proposapenerako eta, horien gainean zerbait luzatu arren, esaustiboki **eztabaidatzen** ez naiz ahaleginduko. Joxe Azurmendi

Zerbaiten zain zeuden beti mutilak; unetik unera irteten ziren atera, bero-bero **eztabaidatzen** zuten, barre egiten zuten. Josu Zabaleta

Jean Mitryk luzaro **eztabaidatu** izan du "kamera-mugimendu"-aren kontzeptua bera, oso interpretazio zaileko adibideak jarriz. Josu Zabaleta

Gainera, gure amak lira batzuk irabazteko irrikan dagoenak behar duen adeitasunez **eztabaidatu** nahi izaten zuen. Pello Lizarralde

Beraren zortearen giltza zuten gizonekin eztabaidan jardun zuen, eta hankasartzerik larriena egin zuen ingenioz eta ironiaz **eztabaidatzea**. Juan Garzia

Katalunian ere, Napoleonen agintealdi bitartean, Frantziako Kode hori nola eman, katalanez edo espainolez, gogor **eztabaidatu** zen. Andres Urrutia

Orduan, berarekin zintzo **eztabaidatu** eta behin betiko irabaziko nuke auzia. Elizen arteko biblia

Kristoren ikasle berri haiek luze **eztabaidatu** zuten gai haiei buruz apaltasunaren eskolan. Askoren artean

Emaitza berri bat, ideia berri bat agertu ahala, luze-zabal **eztabaidatzen** ziren taldean. Juan Garzia

3 (era burutua izenondo gisa)

Horregatik, egia adimen-alor **eztabaidatua** bihurtu zen. Iñaki Mendiguren

Hala ere, beste kasuetako batzuk oso **eztabaidatuak** izan dira historian zehar. Askoren artean

Idazlearen liburu heterodoxoena denez gero **eztabaidatuena** ere izango den liburu hori iraila eta azaroa artean joan da hazten, Idahoko Sun Valley herritxoan. Edorta Jimenez

Hiru Lagunen Legenda-ri buruz punturik **eztabaidatuenetakoa** Perugiako Anonimoa-rekin duen erlazioarena da. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

artean eztabaidatu (9); **artean eztabaidatu eta** (4); **asko eztabaidatu** (8); **bihar eztabaidatuko** (5); **bilkuran eztabaidatuko** (7); **buruz eztabaidatu** (15); **buruz eztabaidatu zuten** (4); **buruz eztabaidatuko** (6); **da eztabaidatu** (7); **ere eztabaidatu** (9); **ere eztabaidatuko** (7); **eta eztabaidatu** (22); **eta eztabaidatuko** (6); **eta zabal eztabaidatu** (4); **ez eztabaidatu** (6); **eztabaidatu ahal** (19); **eztabaidatu ahal izango** (5); **eztabaidatu ahal izateko** (8); **eztabaidatu behar** (56); **eztabaidatu behar da** (7); **eztabaidatu behar dela** (10); **eztabaidatu behar direla** (4); **eztabaidatu behar dute** (4); **eztabaidatu beharko** (24); **eztabaidatu beharra** (6); **eztabaidatu beharreko** (9); **eztabaidatu beharrekoa** (5); **eztabaidatu da** (13); **eztabaidatu ditugu** (4); **eztabaidatu dituzte** (11); **eztabaidatu dugu** (4); **eztabaidatu dute** (12); **eztabaidatu egin** (7); **eztabaidatu ere** (9); **eztabaidatu ere egin** (4); **eztabaidatu eta** (95); **eztabaidatu eta bozkatu** (6); **eztabaidatu eta bozkatuko** (13); **eztabaidatu eta onartu** (7); **eztabaidatu gabe** (12); **eztabaidatu genuen** (6); **eztabaidatu izan** (10); **eztabaidatu izan du** (4); **eztabaidatu nahi** (39); **eztabaidatu nahi ez** (4); **eztabaidatu ondoren** (12); **eztabaidatu ostean** (6); **eztabaidatu zen** (13); **eztabaidatu ziren** (6); **eztabaidatu zituzten** (8); **eztabaidatu zuen** (15); **eztabaidatu zuten** (36); **eztabaidatu zuten atzo** (4); **eztabaidatua izan** (7); **eztabaidatuak izan** (5); **eztabaidatuko da** (14); **eztabaidatuko dela** (4); **eztabaidatuko den** (11); **eztabaidatuko dira** (17); **eztabaidatuko dituzte** (21); **eztabaidatuko dituztela** (4); **eztabaidatuko du** (35); **eztabaidatuko duen** (4); **eztabaidatuko dugu** (7); **eztabaidatuko dute** (66); **eztabaidatuko dute gaur** (5); **eztabaidatuko dutela** (6); **gabe eztabaidatu** (5); **gainean eztabaidatu** (4); **gaur eztabaidatuko** (9); **gaur eztabaidatuko du** (5); **gehiago eztabaidatu** (4); **guztiak eztabaidatu** (6); **honetan eztabaidatu** (5); **hori eztabaidatu** (8); **horretaz eztabaidatu** (4); **inguruan eztabaidatu** (9); **inguruan eztabaidatu zuten** (5); **inguruan eztabaidatuko** (7); **inguruan eztabaidatuko dute** (5); **kongresuan eztabaidatu** (4); **legebiltzarrean eztabaidatu** (4); **legebiltzarrean eztabaidatu behar** (4); **luze eztabaidatu** (10); **luze eztabaidatu zuten** (5); **osoko bilkuran eztabaidatuko** (4); **parlamentuan eztabaidatu** (4); **proposamena eztabaidatu** (8); **proposamena eztabaidatuko** (9); **proposamena eztabaidatuko du** (4); **proposamenak eztabaidatu** (6); **proposamenak eztabaidatu eta** (4); **sakon eztabaidatu** (4); **txosten eztabaidatu** (4); **txostena eztabaidatu** (4); **zabal eztabaidatu** (5); **zer eztabaidatu** (4); **zuzenketak eztabaidatu** (7); **zuzenketak eztabaidatu eta** (4); **zuzenketak eztabaidatuko** (5)

ari dira eztabaidatzen (4); **artean eztabaidatzen** (7); **asko eztabaidatzen** (4); **auzia eztabaidatzeko** (4); **aztertzeko eta eztabaidatzeko** (4); **bat eztabaidatzen** (4); **buruz eztabaidatzeko** (20); **buruz eztabaidatzen** (7); **den eztabaidatzen** (6); **dira eztabaidatzen** (9); **egitasmoa eztabaidatzen** (4); **erreforma eztabaidatzeko** (4); **eta eztabaidatzea** (9); **eta eztabaidatzeko** (29); **eta eztabaidatzen** (7); **ez eztabaidatzea** (5); **ez eztabaidatzeko** (8); **ez eztabaidatzen** (5); **eztabaidatzea da** (6); **eztabaidatzea eta** (10); **eztabaidatzea nahi** (4); **eztabaidatzeko asmoa** (8); **eztabaidatzeko asmoz** (9); **eztabaidatzeko aukera** (8); **eztabaidatzeko bildu** (5); **eztabaidatzeko eskatu** (11); **eztabaidatzeko eta** (22); **eztabaidatzeko prest** (20); **eztabaidatzeko prest agertu** (4); **eztabaidatzeko unea** (6); **eztabaidatzen ari** (83); **eztabaidatzen ari da** (7); **eztabaidatzen ari den** (6); **eztabaidatzen ari dira** (16); **eztabaidatzen ari direla** (4); **eztabaidatzen ari diren** (5); **eztabaidatzen ari gara** (10); **eztabaidatzen ari zirela** (5); **eztabaidatzen ari ziren** (5); **eztabaidatzen aritu** (14); **eztabaidatzen aritu ziren** (4); **eztabaidatzen da** (15); **eztabaidatzen den** (7); **eztabaidatzen denean** (7); **eztabaidatzen diren** (4); **eztabaidatzen dugu** (4); **eztabaidatzen dute** (7); **eztabaidatzen eta** (7); **eztabaidatzen ez** (5); **eztabaidatzen hasi** (24); **eztabaidatzen hasi ziren** (7); **eztabaidatzen hasiko** (6); **eztabaidatzen hastea** (5); **eztabaidatzen hasteko** (6); **eztabaidatzen jarraitzen** (4); **eztabaidatzen zen** (4); **eztabaidatzen ziren** (5); **eztabaidatzen zuten** (10); **gaia eztabaidatzeko** (8); **gainean eztabaidatzeko** (7); **hori eztabaidatzeko** (8); **hori eztabaidatzen** (4); **inguruan eztabaidatzea** (6); **inguruan eztabaidatzeko** (21); **inguruan eztabaidatzen** (11); **legebiltzarrean eztabaidatzea** (5); **legebiltzarrean eztabaidatzeko** (5); **neurriak eztabaidatzeko** (5); **proposamena eztabaidatzea** (4); **proposamena eztabaidatzeko** (8); **proposamena eztabaidatzen** (6); **proposamenak eztabaidatzeko** (5); **testua eztabaidatzen** (4); **zuzenean eztabaidatzeko** (4); **zuzenketak eztabaidatzeko** (4)

---

eztabaidatxo *iz adkor* eztabaida txikia.

Gaia aldatze aldera (aspaldi gertatzen ez zenez), atzo Van Daan andre-gizonak izan zuten **eztabaidatxo** bat kontatuko dizut: [...]. Josu Zabaleta

Eztabaidatxoren bat tartean, baina zoroak bezain pozik, Sekula Betiko Lurraldera gerturatzen hasi ziren. Julen Gabiria

---

eztabaidatzear *adlag* eztabaidatzeko zorian.

Barne politika eta justizia alorreko gaiak **eztabaidatzear** daude negoziazioetan. Berria - Mundua

Eztabaidatzear dauden xehetasunak, ordea, ugari dira: zehazki noiz abiatuko diren elkarrizketak eta baldintzak jarriko dituzten. Berria - Mundua

---

eztabaidatzearren *adlag* eztabaidatzeko.

Dena dela, gehiago ez **eztabaidatzearren**, errublo eta erdi emango dizut bakoitzarengatik; nahi baduzu, prezio horretan saldu, ezin dizut gehiago ordaindu. Jose Morales

---

eztabaidatzeke *adlag* eztabaidatu gabe.

Egitasmoa aztertu zuen lan taldean osoko bi zuzenketa geratu ziren **eztabaidatzeke**, PPk eta SAk aurkeztutakoak. Berria - Harian

Eztabaidatzeke daude oraindik lan egutegia, lan baldintzak, eta langile kopurua, besteak beste. Berria - Euskal Herria

Sindikatuen eskaerak **eztabaidatzeke** daude. Berria - Euskal Herria

---

eztabaidazale *izond/iz* eztabaiden zalea dena; eztabaiden zalea den pertsona.

Daniar handia tipo **eztabaidazalea** zen eta, hortaz, sekulako eztabaidak bazkarian gauza guztien gainean: bonba atomikoaz, munduko bakeaz, munduko bakearen aldeko ibiltari alemaniarrak sortzen ari ziren alderdi berriaz. Fernando Rey

Berritsua, **eztabaidazalea**. Berria - Kirola

Eta nik, **eztabaidazale** ere ez naizenez, bakeoso eta amore emanzale gehiago, [...]. Pello Zabala

Honelako saialdi bakoitzean inferentzia faltsua aurkitzeko eskakizuna saihestu eta horren bitartez bere handiustea hustu nahi ez dudan arren, horregatik oso **eztabaidazalea** naizela pentsatu gabe. Ibon Uribarri

Gorpujaleen existentzia dudatan jarri dute mundua sinesmen kontsolagarriez gabetzeaz ordezko zerbait emateaz baino gehiago arduratu diren **eztabaidazaleek**. Xabier Olarra

---

eztabaidezin *izond* ezin eztabaidatuzkoa.

Egia, eta egia **eztabaidaezina**. Aingeru Epaltza

Hau ez zen egia **eztabaidaezina**, baina nor zen laburbiltzeko balio zuen. Jon Alonso

Egilearentzat, estatu moderno horren froga **eztabaidaezinak** daude dokumentazioan. Berria - Kultura

Teknologia nuklearra eskubide **eztabaidaezina** da eta nazioarteak onartu egin behar du. Berria - Mundua

Zuzentzaileak bikoizteko dohain azpimarragarria du, deleatur bat marraztu edo koma **eztabaidaezina** sartzen du. Jon Alonso

Oharrak errealitate bihurtu ziren, datu **eztabaidaezin**, eta haien gainean taxutu zen plan osoa. Karlos Zabala

Teorema psikologiko haiek guztiek beren zuzentasun **eztabaidaezina** dute. Ibon Uribarri

Entropiaren lege **eztabaidaezina**. Fernando Morillo

Hantxe, froga erantzunezina eta **eztabaidaezina**! Joan Mari Irigoien

Azkenaldiko gainbehera militarra bat-batean egiaztatzea, guduan menderatua izatearen logika **eztabaidaezinaren** bidez, harrigarria bezain umilagarria zen haientzat. Iñaki Mendiguren

Modu **eztabaidaezinean** erakusten dut herritarrak bere printze kristauari zor dion obedientzia ez doala, inola ere, kristau erlijioaren kontra, Idazteunaren testigantzek erakusten duten bezala. Esteban Antxustegi

Hego Euskal Herrian **eztabaidaezina** da zerga sistema atzerakoia dela. Berria - Ekonomia

Egia da badituela, bere joera politikoaz gain, beste dohain batzuk **eztabaidaezinak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitz suharrak Cartierrenak, irudiz **eztabaidaezinak**. Xabier Montoia

Estrategikoak (hau da, **eztabaidaezinak**) bilakarazi dituzten proiektu hauen aurrean ezer gutxi daukate egiteko Naturari egin deietan oinarritzen diren jarrerek. Berria - Gaiak

Balio moralen absolututasunak (hau **eztabaidaezina** da Hartmannentzat) ateismoa postularazten du. Joxe Azurmendi

Bazekiten, besteak beste, Espainiako subironatasun bakarraren eta nazio espainiarraren zatiezintasunaren irizpideak **eztabaidaezinak** zirela, ukiezinak. Berria - Euskal Herria

Amorrorturen profesionaltasuna **eztabaidaezina** baita. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta eztabaidaezina (5); **eztabaidaezina da** (9); **eztabaidaezina dela** (5)

---

eztabaidezintasun *iz* eztabaidaezina denaren nolakotasuna.

Legaltasuna errespetatu behar hori ez al da, azken batean, Espainiaren subiranotasun bakarraren **eztabaidaezintasuna** onartzea? Berria - Euskal Herria

---

eztai ik **eztei**.

---

eztainu **1** *iz* gai bakuna, metal zuri grisaxka, 232° C-tan urtzen dena eta erraz xaflatzen dena*(Sn;* at. z. 50).

Usadiozko materialen ordez (larrua, burdina, **eztainua**...) material berriak zabaltzen hasi direlako (plastikoak, zuntz optikoak, kautxu sintetikoa...), fidagarriagoak, eragingarriagoak eta merkeagoak baitira. Koro Navarro

Kobrea, **eztainua** eta altzairua dira lehengai nagusiak Altsasuko artistaren lanean, distira hotzeko lehengaiak. Berria - Kultura

Poliki-poliki, **eztainua** urtu egiten zen, eta tantak konketa bateko uretara amiltzen ziren karranka ozenez. zZeure salgaien truke zilarra, burdina, **eztainua** eta beruna ematen zizkizuten. Juan Garzia

Israel herria hondakin bilakatu zait, zilarra, brontzea, **eztainua**, burdina edo beruna labearen erdira bota eta azkenean gelditzen den hondakina bezala. Elizen arteko biblia

Azido klorhidrikoan disolbarazten genuen, bada, **eztainua**: gero pisu espezifiko jakin bateraino kontzentratu behar zen soluzioa, eta hoztuz kristaltzen utzi. Juan Garzia

Kartagotarrek, urre-zilarren merkataritzan nagusi, berunaren eta **eztainuaren** merkataritzan ere nagusi izan nahi zuten. Iñaki Iñurrieta

Lurrina zerion saldaz betetako pertzari; latorrizkoa zen, **eztainuz** estalia. Karlos Zabala

Gizonak ura ekarri zion **eztainuzko** konketa batean. Juan Garzia

Buruan **eztainuzko** kaskoak eta soinean kaki-jantziak zituzten pailazoen antzera. Mirentxu Larrañaga

Beste bat beltza, barrutik **eztainuzko** xaflaz azpikotua. Ramon Saizarbitoria

Salara sarturik, zazpi katilu **eztainuzko**, txano gorri bat eta urrezko eraztun bat topatu zituen. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Hodeiok mendebalderantz flotatzen ari ziren eta haien artetik, **eztainu**-papera bailitzan, eguzkiaren argi zuri eta distiratsua igarotzen. Lopez de Arana

Koronela puru baten **eztainu**-paperezko estalkia kontu handiz zabaltzen ari zen. Lopez de Arana

Txokolatetxoen **eztainu**-xaflak. Juan Garzia

Alde guztietan, lengoraduak erruz ageri ziren binaka paratuak, grisak edo horiak; lantzoi meheek, zurrun-zurrun, **eztainu** txirbilak ziruditen. Karlos Zabala

Biok hartatik bizi ginelako, hura **eztainu** kloruro bihurtu eta ispilugileei salduz. Juan Garzia

Pertza (berun-**eztainuzkoa**, 2. tamaina). Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eztainu kloruroa (3); **eztainu paperezko** (4); **eztainua eta** (3)

---

eztanda **1** *iz* lehertzea, leherketa.

1994ko martxoaren 31: Cadabaracheko (Frantzia) ikerketa nuklearren gunean **eztanda** bat gertatu zen. Berria - Gaiak

Teknikariek gaur desmuntatuko dute labea **eztanda** zergatik gertatu zen aztertzeko. Berria - Ekonomia

Halako batean, **eztanda** bat entzun zen inguruan, zerutik zetorrena. Josetxo Azkona

Petardo baten **eztanda**. Lopez de Arana

Poliziak jakinarazi zuen lau **eztandez** gain, «bi leherketa kontrolatu» eragin zituela herenegun. Berria - Harian

Guardia Zibilaren Land-Rover haren aurkako bonbaren **eztanda**. Iban Zaldua

Hartan geundela, trumoi-zartada baten **eztanda**. Anjel Lertxundi

Eztanda izan baino bost bat minutu lehenago langile eta bezero guztiak kalean zirela gaineratu zuten. Berria - Mundua

Eztandak bi hildako eragin zituen. Berria - Mundua

1991n, ETAk ezarri zion lehergailu bat bere autoaren azpian eta **eztandak** bi zangoak moztu ziozkan. Herria

Eztandak lurrera jaurti gaitu guztiok, lanparak itzali egin ditu, eta ilunperik latzenean murgilarazi gaitu. Mirentxu Larrañaga

Eztandak hamar eraikin suntsitu zituen. Berria - Mundua

Borroka gero eta hurbilago zegoen, eta **eztandak** bortitz lehertzen ziren handik ez oso urruti. Karlos Zabala

Nire mutiko denborako lehenbiziko oroitzapena hots izugarri bati dago loturik: M... nire jaioterriko hiriaren gainera erortzen ziren bonben **eztanden** hotsari. Alberto Ladron Arana

Trumoi baten **eztandak** ekarri zituen ostatuan zeuden denak beren onera. Felipe Juaristi

Petardoen **eztandak** eta zalaparta. Anjel Lertxundi

Berehala **eztandak** ozenago bihurtzen hasi ziren, eta, atzeko aldean, Kolivan hiriaren ezkerrean, lurrunak metatu ziren zerumugaren gainean. Karlos Zabala

Ez al zuen ikusi oihanetako gizona bere alanbrezko etxean katigu, haserrerik desegokienezko **eztandatan** lehertu zen Honorine. Josu Zabaleta

Eztandaren ufakoak, halaber, galera ikaragarriak eragin zituen Abdolabad, Dehno eta Hashemabad herrietan. Berria - Mundua

Martha Gellhornek bonba-leherketen eta **eztanden** hots izugarrien soinu-efektuak sortzen laguntzen dio. Edorta Jimenez

Eztanden dardarak etengabe kezkatzen nau dagoeneko. Josu Zabaleta

Zoriari zor zaio **eztanden** balantzea dramatikoagoa ez izatea. Berria - Euskal Herria

Jende guztiak entzun zuen, bestalde, zarata hori eskualde hartan, eta tximista baten **eztandatzat** hartu zuen. Josu Zabaleta

-Errusian iraultzaren **eztanda** izan zela. Xabier Olarra

Pasioaren **eztanda**. Jasone Osoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Eguzkia bonba bat bezala agertu zen, **eztanda** nuklear izugarri baten antzera. Xabier Olarra

Eztanda bortitz batek baino ezin zuen askatu airean pilaturik zegoen tentsio elektriko itzel hura. Karlos Zabala

Lehergailu baten **eztanda** ikaragarria izan zen. Fernando Morillo

Eztanda sor zakar bat eta lama gaizto bat eraginez izeki zen barrenean nafta hautseztatuzko txorrotada. Juan Garzia

Eztanda sor bat-bateko bat entzun zen. Juan Garzia

Eta, danba!, **eztanda** lehor bat entzuten dut. Anjel Lertxundi

Gogoeta hori burura etorri orduko trumoi baten **eztanda** isila trafikoaren eta eraikinen zalapartaren gainean pausatu zen. Lopez de Arana

Zarata eta koloreen **eztanda** txundigarria. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta hor entzuten dut, paum!, **eztanda** txiki bat, soinu lehor bat, pertsianek haizearen eraginez hormaren kontra jotzean egiten dutenaren antzekoa. Anjel Lertxundi

Koipeak irakiten ari ziren geldo-geldo, eta lurrin minezko **eztanda** txiki bat ihesi zihoan borbor bat lehertzen zen bakoitzean. Karlos Zabala

Kartzelak ez dira bete delinkuentziak -nolabaiteko **eztanda** sozialaren bitartez- bat-bateko boom bat izan duelako. Iñaki Heras

Elseri seinale ona iruditu zitzaion libidoaren **eztanda** bat-bateko hura, eta nahi zuen guztia egiten utzi zion senarrari. *Big-bang* esaten zaio **eztanda** kosmiko-komiko horri. Patxi Iturritegi

Larri ibili nintzen, kirru handi bat egin nuen zerurantz, eta bertikala hartzen ari nintzela gaitzeko **eztanda** batek astindu zuen Polikarpov gaixoa, uste nuen tankean eman zidatela, baina hegazkinak gorantz jarraitu zuen. Koldo Izagirre

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Korrika egin nituen Atocha tren geltokiaren eta bigarren **eztanda** gunearen arteko 800 metroak. Berria - Harian

Obra baten eraikuntza "extatikoa" -filma izan, pintura izan, literaturazkoa izan- metaketa-prozesu batean eta bat-bateko **eztanda** prozesu moduko batean oinarritzen da. Josu Zabaleta

Soinu ikaragarri horiekin mosketeen tiro zoliak nahasi ziren, bai eta emirraren artilleria osatzen zuten seiko eta lauko kanoien **eztanda** hots apalagoak ere. Karlos Zabala

Ikasia zuen aztarna kasik ikusezinei erreparatzen: zuhaitz baten abartxoak nola zeuden jarriak, zein proiekzio egiten zuten izotz orratzek, [...] zein **eztanda** soinu zabaltzen zen airean. Karlos Zabala

Hodei zurixka hartatik, **eztanda** sorta bat bezala, zartailuen zirtakoen hotsa irteten zen. Karlos Zabala

Hegazkineko irratiak, **eztanda** multzoek, eta gero gure xingola zuriaren luxu arranditsuak ere bai, gidatzen dituzte gureganantz ehiza hegazkinak. Josu Zabaleta

Eztanda harresiak geure altueran ari dira berreraikitzen oraingoan. Josu Zabaleta

Bonba haietako bat errota zaharraren gainera erori zen, sabaia apurtu eta hormaren eta habe nagusietako baten artean sartuta geratu zelarik, eta han utzi zuten inor ez zelako bizi bertan eta **eztanda**-eragingailua kendu eta gero ez zegoelako inolako arriskurik. Koldo Biguri

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Fritzek eta guk noizbehinka amorrarazten genuen elkar, misil-**eztanden** ziztu-hotsak eta gau-patruilak bitarteko zirela. Mirentxu Larrañaga

Trumoi **eztanda** latz batek berritu zuen erasoa, etxe bazterretara eta taberna barruetara sakabanatu ziren dantzariak, kioskoa abandonatu zuten musikoek. Koldo Izagirre

Aska/tasu/na! entzuten zen nahinon oraindik, tiro **eztanden** artean. Joseba Sarrionandia

Nahiz eta kilometro batera geunden, elur **eztandak** sortutako zipriztinak gureganaino iritsi ziren. Bernardo Atxaga

Egoera horrek hedatze-**eztanda** gaitz bat eragin bide zuen: *big bang* delakoa, hain zuzen. Juan Garzia

Barre **eztanda** haiek, belaunak altxatu eta burua atzerantz botarazten ziotenak, zerk eragiten zituen jakin nahian. Ramon Saizarbitoria

Orduan txalo-**eztanda** burrunbatsua izan zen, eta gure aitak bere ingurura begiratu zuen, harrituta eta galduta bera ere. Fernando Rey

Lagungiro on itxurako aldarteak eta halaber itxura baino ez ziren sumindura **eztandak** txandakatzen zituen. Juan Garzia

Bat-bateko argi-**eztanda** batek argi berria eman dio esaldi zaharrari. Anjel Lertxundi

Alcatraz bati tiro, kolore **eztanda**, hori, gorri. Harkaitz Cano

Heriotzaren atalburuan egon ez balira, ezin izanen zuten bat egin halako maitasun-**eztandan**. Fernando Rey

Aurreneko eragilea lan-eskaintza gehiegizkoa da, demografia-**eztandak** eragina. Koro Navarro

Marmarra poz-**eztanda** bilakatu zen. Fernando Rey

Zartakoak, halaz guztiz, txiki-txiki eginda utzi du Virgil, eta amorrazio-**eztandei** leku ematea eragin: bere babesgabetasunaren eta eritasunaren aurkako amorrazioa. Xabier Olarra

Erlijio berri baten sorrerak antzinakoaren jarraitzaile tematien artean eragin ohi duen gorroto **eztanda** gisa ulertzen zuen jendaila haren iskanbila. Josu Zabaleta

5 ***eztanda egin***

Bost segundo geroago, obusak **eztanda egin** zuen kanpo aldean. Karlos Zabala

Handik gutxira Hiroshima eta Nagashaki desagertu ziren mundu mapatik atomo bonbak **eztanda egin** ondoren. Pello Salaburu

Guardia zibil bat hil zen dinamitak **eztanda egin** zuenean. Iñaki Zabaleta

Hala ere, bonbetako asko su-eragileak ziren eta, okerrena etortzeko zegoen; oi, horiek **eztanda egiten** hasi zirenean! Edorta Jimenez

Lehergaiak, ordea, behar baino lehen **egin** zuen **eztanda**. Xabier Olarra

Laurehun granadak **egin** zuten **eztanda** bost egun eta gauez monastegiaren harresi gora eta gotorren kontra. Txillardegi

"Zure behin betiko erabakia da?", galdetu dit halako batean, trumoi batek **eztanda egin** izan balu baino zaratatsuago. Anjel Lertxundi

Burbuilak **eztanda egin** eta akzioek behera eta behera egin zuten. Iñaki Heras

Lurra etengabe jotzen ari diren izpi kosmikoak duela mila urte **eztanda eginiko** supernoba batetik datozela frogatu zuten. Berria - Gaiak

Ia erabat patuaren mende zeuden hainbat bizitza **eztanda egitear** egon zitezkeen telefono dei baten ondoren, eta haiek ez zekiten ezer, ezta arrastorik ere. Harkaitz Cano

Instrumentu taulak **eztanda egin** zuen. Josu Zabaleta

Joan den denboraldia bukatu berritan **egin** zuen **eztanda** aferak. Berria - Kirola

Ameskeria liberalak **eztanda egin** eta gizadia, 1914an, Lehen Mundu Gerraren sarraskira bideratu zuenean, jakina, sistema horrek ere porrot egin zuen. Iñaki Heras

Banekielako edozein unetan haren zakil lodiak **eztanda egin** eta nire eztarrian behera tiro likinak botako zituela, espermaz josiriko hitzak. Jasone Osoro

Urtero harridura miretsi bera, bai, ikusirik kimuak bizi berriz **eztanda egiten** nonahi. Juan Garzia

Sahatsa dagoeneko lore-pinportak aspaldi lehertuta gure paraje hauetan: Iparraldeko zelten lurralde hotzagoetan, aldiz, loreño xuri, begi-botoi haziak noiz **eztanda egingo**.

Pello Zabala

Perpausak kadentzia baten arabera txirikordatu eta lotzeko gaitasunak su-festa baten antzera **egiten** digu **eztanda** begien aurrean. Jon Alonso

Neba-arreben amorruak **eztanda egin** zuen azkenean. Juan Garzia

Ni atseginez iraulka nenbilen, eta orgasmoak **eztanda egin** zidan bere bortxa osoaz, guztiz ahituta uzten ninduelarik. Juan Martin Elexpuru

"Bara hor!", **egin** du **eztanda**. Xabier Montoia

Barrez **eztanda egin** zuen azkenean eta oilo-larrua jarri zitzaidan. Joxan Elosegi

· Gainera, uranioa piroforikoa da, hau da, jomugan talka egitean **eztanda eragiten** du. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argi eztanda (6); **argi eztanda baten** (3); **artean eztanda egin** (3); **aurrean eztanda** (3); **auto batek eztanda** (37); **autoak eztanda egin** (5); **autok eztanda** (4); **autok eztanda egin** (3); **batean eztanda** (6); **batean eztanda egin** (4); **batek eztanda** (144); **batek eztanda egin** (100); **batek eztanda eginda** (17); **batek eztanda egitean** (14); **batek eztanda egitearen** (4); **batek eztanda egiten** (4); **batek zuen eztanda** (4); **baten eztanda** (9); **baten eztandak** (9); **beste eztanda** (8); **beste eztanda bat** (5); **bigarren eztanda** (4); **bigarren eztanda bat** (3); **bonba autok eztanda** (3); **bonba batek eztanda** (21); **bonba baten eztandak** (4); **bonbak eztanda** (7); **bonbak eztanda egin** (3); **da eztanda** (3); **dantzaldia eztanda** (4); **du eztanda** (7); **egin eta eztanda** (4); **egin zuen eztanda** (26); **egin zuten eztanda** (10); **ere eztanda** (3); **eta eztanda** (26); **eta eztanda egin** (10); **eta eztanda gertatu** (3); **eta eztandak** (4); **eta eztandaren** (3); **ez du eztanda** (3); **eztanda ahul** (3); **eztanda bat** (30); **eztanda bat aditu** (3); **eztanda bat entzun** (10); **eztanda bat gertatu** (3); **eztanda bat izan** (4); **eztanda batean** (7); **eztanda batek** (8); **eztanda baten** (12); **eztanda baten ondorioz** (3); **eztanda egin** (296); **eztanda egin arte** (4); **eztanda egin aurretik** (3); **eztanda egin behar** (4); **eztanda egin du** (7); **eztanda egin eta** (23); **eztanda egin ez** (3); **eztanda egin gabe** (3); **eztanda egin ondoren** (10); **eztanda egin ostean** (3); **eztanda egin zion** (3); **eztanda egin zuela** (5); **eztanda egin zuelarik** (10); **eztanda egin zuen** (125); **eztanda egin zuenean** (20); **eztanda egin zuten** (21); **eztanda eginda** (27); **eztanda egingo** (25); **eztanda egingo du** (4); **eztanda egingo zuela** (4); **eztanda egitea** (7); **eztanda egitean** (21); **eztanda egitearen** (8); **eztanda egitearen ondorioz** (7); **eztanda egiteko** (12); **eztanda egiten** (29); **eztanda egiten duenean** (3); **eztanda egiten zuen** (4); **eztanda egiten zuten** (4); **eztanda entzun** (7); **eztanda eragin** (6); **eztanda eta** (7); **eztanda gertatu** (16); **eztanda gertatu zen** (5); **eztanda gertatu zenean** (3); **eztanda handi** (5); **eztanda handi bat** (3); **eztanda ikaragarria** (4); **eztanda izan** (12); **eztanda izan zen** (6); **eztanda sor** (4); **eztanda txiki** (8); **eztanda txiki bat** (4); **eztandak entzun** (4); **eztandak kalte** (3); **eztandaren arrazoiak** (3); **eztandaren ondoren** (3); **eztandaren ondorioz** (9); **eztandarik egin** (4); **eztandek ez** (3); **gero eztanda** (3); **hirugarren eztanda** (3); **horrek eztanda** (3); **horrek eztanda egin** (3); **horren eztanda** (3); **izan zen eztanda** (4); **lehen eztanda** (5); **lehergailu batek eztanda** (56); **lehergailuak eztanda** (17); **lehergailuak eztanda egin** (13); **lehergailuk eztanda** (6); **lehergailuk eztanda egin** (5); **leherkari batek eztanda** (3); **zen eztanda** (7); **ziren eztanda** (4); **ziren eztandaren** (3); **zituen eztandak** (5); **zuen eztanda** (37); **zuen eztanda egin** (5); **zuten eztanda** (13)

---

eztandabide *iz* eztandarako bidea.

Zangoetan dardara apur bat sumatzen nuen; atzera begirako beldurra, noski, eta, aldi berean, harrotasun zozo halako bat, hipotesi bat baieztatua bainuen horrenbestez, eta izadiaren ahalmen gorde bati indar-**eztandabide** jatorra eman. Juan Garzia

---

eztandagarri *izond adkor* zirrara handia eragiten duena.

Baina, beharbada, nahiago duzu urte batzuetan preso egotea, deklarazio **eztandagarri** batzuk eginda. Joan Mari Irigoien

---

eztandarazi, eztandaraz, eztandarazten du *ad* eztanda eragin, eztanda egitera behartu.

Lehenengo bonba-autoa lehertu eta ordu erdira **eztandarazi** zuten bigarrena, Palestina eta Bagdad hoteletatik gertu, Saadoun kalean. Berria - Mundua

Supermerkatu batean eta taberna batean **eztandarazi** zituzten lehergailuak bi ekintzaile suizidak. Berria - Mundua

Baionako lehergailua artezilariek kontrolpean **eztandarazi** zuten. Berria - Euskal Herria

Errepublikanoen eta Londresen arteko harremanak bertan behera geratu ziren urte bereko otsailean, IRAk bonba bat **eztandarazi** eta bi pertsona hil zituenean. Berria - Harian

Ustezko ekintzaile islamista talde bateko kideek granada bat **eztandarazi** eta hiru polizia zauritu zituzten erasoan. Berria - Mundua

Estatu Batuek Pazifikoan **eztandarazi** berri zuten hidrogenozko bonbari buruz jardun zuten segidan. Josu Landa

Ekintzaileek Goma 2 Eco ereduko 15 eta 20 kilo arteko lehergaia erabili zutela eta euren gorputzak **eztandarazi** aurretik «arabiar kantuak eta oihuak» egin zituztela adierazi zuen atzo Acebesek. Berria - Mundua

Han gelditu zen atarian geldi eta isilik, bihotza punpaka **eztandaraziko** liokeen zerbaiten zain. Felipe Juaristi

Bigarren ibilgailua jatetxe baten aurrean **eztandarazi** zuten, eta 13 zauritu eragin zituzten. Berria - Mundua

Plastikozko poltsan sartzen da lehergailu txiki batekin, urrutiko kontrolez **eztandarazteko**. Joseba Sarrionandia

Maiztasun handiko soinu-uhin batek ura bezalako likido bat zeharkatzen duenean, uhinaren presio negatiboek bortizki **eztandarazten** dute edozein lurrun-burbuila, bolumena 1.000 aldiz handitzeraino. Fernando Morillo

Zubiak **eztandarazteaz** gain, hainbat errepide moztu eta trenbidearen zati bat desegin dituzte adjariarrek azken egunotan. Berria - Mundua

Tasen igoerak «etxe agentzien burbuila» **eztandarazi** dezake, eta kaltea kontsumora kutsatu. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat eztandarazi (14); **bat eztandarazi eta** (4); **bat eztandarazi zuten** (7); **bat eztandarazita** (3); **bonba bat eztandarazi** (4); **eztandarazi eta** (7); **eztandarazi zituzten** (8); **eztandarazi zuen** (3); **eztandarazi zuten** (15); **lehergailu bat eztandarazi** (6); **lehergailua eztandarazi** (4); **lehergailuak eztandarazi** (6); **lehergailuak eztandarazi zituzten** (3)

---

eztandatsu *iz* eztanda askokoa, eztanda handikoa.

Platoko ikusleek -panpinak, eskulturak, txotxongiloak barne- ezinago gustura egin zuten barre-karkara, lehertu arte barre egin ere, eta leherketa **eztandatsu** haiek plus koloretsu bat eman zioten programaren taxuari. Karlos Linazasoro

Tourettedun askok atletismorako joera izaten dute, hein batez (susmatzekoa da) beren abaila eta zehaztasuna dela medio, eta beste hein batez beren mugimendurako bulkada **eztandatsu** eta eragabea dela medio. Xabier Olarra

Askabide hori, zorionez, **eztandatsua** izan beharrean, ekitaldi baten nahiz joko baten isuriaren edo erritmoaren barnean koordina daiteke. Xabier Olarra

---

eztarri 1 *iz* aho barrunbearen eta hestegorriaren sarreraren arteko bitartea.

Haren **eztarriak** listua irensten zuen etengabe. Jose Morales

Eztarria garbitu eta farol baten oinera txistua botakorapil zuen. Lopez de Arana

Eztarria garbitu, eta ahalik goxoen hitz egin zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Sos batengatik ordu laurdena **eztarria** urratu beharrean eztabaidan ematen zuten ahotsen zalapartaren erdian. Karlos Zabala

Ez zen normala komisaldegi batean inork **eztarria** lehertu beharrean barre egitea. Harkaitz Cano

Geldi, Israel! Oinutsik ibili beharko duzu bestela, **eztarria** egarriak lehorturik. Elizen arteko biblia

Edariaren garratzak **eztarria** erre zidan, eztul egin nuen. Anjel Lertxundi

"Kameraden" esan zuen, **eztarria** itotzen ziola zirudien sentimendu batekin borrokan. Urtzi Urrutikoetxea

Jimmyk **eztarria** estutzen zion zerbait sumatu zuen. Lopez de Arana

Ozpin usainak **eztarria** mingosten zion leunki. Karlos Zabala

Hautsez betetako haize hotzak **eztarria** laztu zion. Lopez de Arana

Edateak egarria hiltzeaz gain, **eztarria** ere laxatu zidan. Aingeru Epaltza

Entzuten dizut, **eztarria** narriatua duzu. Josu Zabaleta

Egin oihu **eztarria** betean, beldurrik gabe, goratu ahotsa turutaren pare. Elizen arteko biblia

Basoerdi bat atera diot neure kontura, bere eskubide irabazia onartzearekin batera, mingaina eta **eztarria** bustiaz hizketa bizkortuko zaiolakoan *[ik beherago 7]*. Pako Aristi

Casarsako lehenengo etxeetara orduko, **eztarriak** lehertu beharrean ekin zioten berriro kantuari. Josu Zabaleta

Haren **eztarriak** erlastua zirudien, berriz mintzatu zelarik: [...]. Aingeru Epaltza

Eztarriak min eman zidan irri egitean. Aingeru Epaltza

Eztarriak lehertzeko moduan Internazionala abestuz bukatu nahi izan zituzten kantuak. Josu Zabaleta

Eztarrian trabatu zitzaizkidan hitzak, eta ez nintzen gauza izan esaten zidan guztiari buruaz baietz egiteko baino. Juan Kruz Igerabide

Eztarrian korapilatu zitzaidan erantzuna. Aingeru Epaltza

Dezepzioa **eztarrian** trabeska nuela sartu ginen hamar egun lehenagoko burger berean. Aingeru Epaltza

Listu kolpea sentitu nuen **eztarrian** . Harkaitz Cano

Usoei hegaletatik oratzen zien, buruan kolpe bana ematen zien kirtenarekin, eta, zorabiaturik zeudela, ganibetaren punta sartzen zien **eztarrian** . Karlos Zabala

Irri ilun bat ito zaio **eztarrian** . Pello Lizarralde

Korapiloa egin zaizu **eztarrian** , pentsatu duzunean zein ondo moldatzen zinen amonarekin eta zein harro zegoen amona zutaz. Lourdes Oñederra

Eztarrian nuen korapiloa irensten saiatu nintzen. Koro Navarro

Buruaz baiezkoa egin zion, ezin baitzuen hitz egin **eztarriko** korapiloagatik. Iñaki Mendiguren

Erresumina zeukan **eztarrian** ; ostikoka zeukan bihotza. Anton Garikano

Eztarrian gora igotzen zitzaidan zoriontasunaren dasta eztia, eta zeruan banengo bezala sentitzen nintzen. Juan Kruz Igerabide

Badirudi kafea edan baino bere barne gozotasunarekin balaka egiten diola **eztarrian** behera doan likido beroari. Pako Aristi

Elurretan egongo zen etzanda, hotzak harturik, zurrundurik, gogoa larriturik, oihuka, galdurik, laguntza eske agian, bere **eztarriko** indar guztiaz gaueko isiltasunean deika eta deika. Josu Zabaleta

Arnaste hutsak erre egiten dizkit **eztarriko** bazterrak. Hasier Etxeberria

Berrogeita hamar urte ditut eta inoiz ez naiz gaixorik egon; gutxienez behin edo behin **eztarriko** mina izan banu, edo zaldarren bat, edo pikortaren bat. lepotik heldurik zeukan, arma erabili ere gabe, eta astiro itotzen zuen, haren **eztarriko** hatsak eta haren bihotzaren taupadak gelditzen entzunez. Jose Morales

Sendatzeko azkar, **eztarriko** nire gaitzetik. Hasier Etxeberria

Espantua urdailetik **eztarrira** igo zitzaizunean. Hasier Etxeberria

Eztarritik ateratzen zaion ahotsa lakarra da, amorruz zakartua. Oskar Arana

Irudipena zeneukan, **eztarritik** kendu berri zizuten minbiziaren alea zakarrontzira bota zuela Aldaba doktoreak. Hasier Etxeberria

Eztarritik barre eginez, emakumeari segitu zion gelatxo ilun bateraino. Lopez de Arana

Jackek garrasika jarraitzen zuen esaten ezen tiporen batek beraren arreba joko-mota horretara behartzen bazuen, hortzak hautsi eta **eztarritik** behera bidaliko zizkiola tipo madarikatuari. Irene Aldasoro

Orro baten soinu apala bor-bor ateratzen da txakurraren **eztarritik** ; atzealdeko gihar ahaltsuak tenkatu egiten zaizkio. Oskar Arana

Senarrak, Herminiok, gurgur eta kurrinkak ateratzen zituen, **eztarriarekin** baino gehiago sabelarekin hitz egiten baitzuen. Jasone Osoro

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Esnea gozo eta leun jaisten zen **eztarri** lehorretik behera. Lopez de Arana

Nola ur freskoa **eztarri** lehorrarentzat, hala dira urrutitik jasotako albiste onak. Elizen arteko biblia

Eztarri lakarra goxatzeko. Pello Zabala

Komunean, argia piztu gabe pixa egin eta **eztarri** urratua laxatu nuen, karkaisa nikotinatsuak gehituz zuloko ur horiztatuari. Aingeru Epaltza

Oilotegian zegoen oilarrak, argitasun hura ikusirik, egunsentia hemen zela eta bere **eztarri** takarrarekin kantatzeari ekin ziola, eta harekin batera herriko oilar guztiek. Pako Aristi

Haren **eztarri** sakonetik ihesi joan ziren hitzak, barrenetik kanpora jauzika hitzak, bata bestearen atzetik arrapataka hitzak. Felipe Juaristi

Okerreko **eztarritik** joan zitzaion ardoa. Unai Iturriaga

Adinik eta zauririk gabeko terrorista eternal bat zen Veronica, mila aurpegi aldakorreko samuraia eta espia, bisaiarik gabeko **Eztarri** Sakona, bere auto beltzean herrialdez herrialde eta mendez mende zebilena. Harkaitz Cano

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin zuen tomate azala **eztarri** sabaitik askatzea lortu. **Eztarri** -soinu lakar batek Wardwell arnasarik gabe gelditu zela adierazi zionean, [...]. Unai Iturriaga

Osaba Vernonek **eztarri** -hots bitxi bat egin zuen. Horregatik Lolak aldian behin bere onetik aterata dagoenaren **eztarri** -garrasi luzea egiten zuen bere senarraren eta seme-alaben kontra. Iñaki Mendiguren

Hegalen burrunba entzun zen; **eztarri** -leuntze bat, gero. Jon Muñoz

Eztarri inguru hori dena du bere eraginpean, laringea, tiroides, matrailezurra, hortz-haginak, amigdalak eta entzumena, belarri-bideetan. Pello Zabala

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bafada garratz batek zulatu zizkidan sudur-**eztarriak** . Aingeru Epaltza

5 lepoaren aurrealdea.

Ruthek eskua **eztarriaren** inguruan ezarri zuen. Lopez de Arana

Hogei bat gizonek, uretan gerriraino sarturik batzuk, sorbaldetaraino beste batzuk eta **eztarriraino** banaka batzuk, sare bat zeramaten aintziraren beste aldeko ertzerantz. Jose Morales

Bai ederra harribitxia **eztarri** honetan -esan zuen, eskuarekin lepoaldea laztandu bitartean, eta gero eskua besora eramanik-: bai ikusgarria urregorria beso honetan, bai miresgarria gorrimina ezpain hauetan. Patxi Zubizarreta

6 ***eztarri zulo*** ik beherago **8**.

Eztarri zuloan bola egin zitzaidan, pixkanaka igo eta pixkanaka sudurrean azkura eragin zidana. Jesus Mari Mendizabal

Zerbait erremediaezina, antzinakoa eta mingotsa sentitu zuen **eztarri zuloan** . Harkaitz Cano

Martha Coryren eta Mary Easyren **eztarri zuloan** korapilatutako azken-hatsaren esturak berak eraman zituen Hathorne epailearen aginduz borreroak banan-banan deituriko Alice eta Mary Parker ahizpak zein Ann Pudeator, Wilmot Reed eta Margaret Scott gazteak ere. Anjel Lertxundi

Eztarri zuloko azkura antzeko bat dakarkiote oroitzapen mingarriok. Xabier Mendiguren Elizegi

Eztarri-zulotik zuziak irteten zaizkio, su-txinpartek ihes egiten. Elizen arteko biblia

7 ***eztarria busti*** *adkor* edan.

Sudurra zuritu eta **eztarria busti** , bertzerik ez dik egin bildu dudanetik! Aingeru Epaltza

Kotxe bat hartu eta McGillycuddyrenera joango gara tabernako barruko gelan zerbait edatera, **eztarria bustitzeko** . Lopez de Arana

Alabaina, **eztarria busti** eta berehala botaka hasi zen, kobazulo barruan sagardo zoragarria zena kanpoan ozpin bihurtua baitzen. Martin Anso

Geldilekua antolatu eta gero, gatibuek, hiru eguneko bidaiarengatik leher eginak, egarriz erretako **eztarria busti** ahal izan zuten azkenean eta atseden pittin bat hartu. Karlos Zabala

8 ***eztarriko zulo*** *adkor*ik gorago **6**.

Han, zeure **eztarriko zuloan** , aitzurrak eta palak erabiliak zituzten kartzinoma ale zikina kentzeko. Hasier Etxeberria

Irensteko gaitzak ziren pastillak, lehor-lehorrak eta hautseztatuak, eta setati itsasten zitzaizkion erdibidean, **eztarriko zuloan** behera. Mirentxu Larrañaga

Garbi-garbi atera diotela [kartzinoma] **eztarriko zulotik** eta, gainera, ahots-korda moztu gabe. Hasier Etxeberria

"Lo hartu aurretik topatu nahiko nuke", horrelako zerbait esan nahiko zukeen Egutxik, ez serioski agian, erdi txantxetan baizik, baina hitzak **eztarriko zuloan** geratu zitzaizkion. Ibon Uribarri

Ezta musuak grinatsuak eta **eztarriko zulorainokoak** badira ere. Luis Elberdin

Eztarriko zuloraino gauzkak oraintxe. Aingeru Epaltza

9 ***kontrako eztarri*** zintzurra.

Ura antzo zurrupatu dut airea, **kontrako eztarrira** joan zait, eztulka hasi naiz. Mirentxu Larrañaga

Opiltxo bat joan zitzaion **kontrako eztarrira** te-garaian, eta amak eginahalak eta bi egin zituen arren hura salbatzearren, arnasa hartzeari utzi zion. Gaizki (edo ongiegi?) egindako jendea gara, okerreko bidera edo **kontrako eztarrira** eroritakoa; jende aldrebesa gara, eta aldrebesa bezain egokia. Mirentxu Larrañaga

Anshelek ere hartu zuen zurrutada bat, baina kontrako **eztarritik** joan zitzaion. Koro Navarro

-Mihia **kontrako eztarritik** joan al zain? Harkaitz Cano

Kontrako eztarritik joango zitzaien gehienei errukia, zer erosi zuten konturatu zirenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontrako eztarritik joango ahal zaizkiok denak. Mirentxu Larrañaga

Joseluk trago luzeegia jo zuen antza, eta burbuiletako airea **kontrako eztarrian** trabeskatu zitzaion. Josu Landa

· Gaztea atera daiteke alaia, normala, txintxoa eta pakeoxoa, hau da, paranoikoa; **kontrako eztarriko** psikiatrek idoro ziguten hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela. Iñaki Segurola

10 (ahotsaren organotzat hartua).

Soprano baten soinu etengabea entzuten zen, inondik ere zakurkume baten **eztarritik** aterea. Jose Morales

11 irud/hed

Egunak irentsi egiten du hitza bere **eztarri** beltzean zehar. Oskar Arana

Ibaiko langar huts eta ilunean, ontziralekuak bat-batean aharrausi egin zuen, argizko **eztarriko** aho beltz bat erakutsiz. Lopez de Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baten eztarritik (4); **bere eztarri** (5); **bere eztarrian** (5); **du eztarrian** (4); **egin zuen eztarria** (3); **eta eztarri** (9); **eta eztarria** (33); **eta eztarrian** (18); **eta eztarriko** (9); **eta eztarritik** (4); **ez eztarrian** (3); **eztarri aldean** (3); **eztarri eta** (4); **eztarri hots** (4); **eztarri lehorra** (4); **eztarri zuloan** (4); **eztarri zulotik** (4); **eztarria busti** (3); **eztarria ere** (3); **eztarria erre** (4); **eztarria erretzen** (3); **eztarria eta** (5); **eztarria garbitu** (54); **eztarria garbitu du** (3); **eztarria garbitu eta** (19); **eztarria garbitu zuen** (21); **eztarria garbitzen** (6); **eztarria lehertu** (3); **eztarria lehertu beharrean** (3); **eztarria lehor** (10); **eztarria lehor lehor** (3); **eztarria lehorra** (3); **eztarria leundu** (6); **eztarria leundu zuen** (3); **eztarria ozen** (3); **eztarria urratu** (18); **eztarria urratu arte** (5); **eztarria urratu beharrean** (8); **eztarria urratuta** (3); **eztarria urratzeko** (4); **eztarrian behera** (31); **eztarrian eta** (6); **eztarrian gora** (10); **eztarrian korapilatu** (4); **eztarrian korapilo** (5); **eztarrian korapilo bat** (3); **eztarrian korapiloa** (5); **eztarrian trabatu** (10); **eztarrian trabatu zitzaidan** (3); **eztarrian trabaturik** (5); **eztarrian trabatuta** (4); **eztarrian trabatuta geratu** (3); **eztarriko eta** (3); **eztarriko korapiloa** (3); **eztarriko mina** (11); **eztarriko mina izan** (3); **eztarriko minez** (23); **eztarriko minez nabilek** (20); **eztarriko zuloan** (5); **eztarriko zuloraino** (4); **eztarrira joan zitzaion** (4); **eztarriraino sartu** (4); **eztarritik behera** (8); **eztarritik gora** (4); **eztarritik joan** (9); **eztarritik joan zitzaion** (3); **eztarritik joango** (3); **geratu zitzaion eztarrian** (4); **hari eztarrian** (3); **hitza eztarrian** (3); **hitzak eztarrian** (3); **kontrako eztarrira** (13); **kontrako eztarrira joan** (7); **kontrako eztarritik** (14); **kontrako eztarritik joan** (8); **kontrako eztarritik joango** (3); **korapiloa eztarrian** (3); **nire eztarritik** (3); **nuen eztarria** (4); **nuen eztarrian** (4); **sabeletik eztarrira** (3); **zaio eztarrian** (3); **zait eztarrian** (3); **zitzaidan eztarrian** (5); **zitzaion eztarrian** (8); **zuen eztarri** (4); **zuen eztarria** (11); **zuen eztarrian** (4)

---

eztarriratu, eztarrira(tu), eztarriratzen du *ad* eztarrira eraman.

Mentxuk edan barik lagatako burbon hondarra **eztarriratu** zuen. Josu Landa

-Berehala nago ni ere -esan, atxikoria-hondarra kolpe bakar batean **eztarriratu** , eta lasterka joan nintzen logelara. Inazio Mujika Iraola

Andresek ahora eraman du koñaka, eta luze gozatu du koñakaren laztana, **eztarriratu** aurretik. Paddy Rekalde

Ximurrak buruan emandakoaren ondotik, aspaldiko partez **eztarriratutako** whiskyaren kolpeak are gaitzago egiten zuen arrazoi egokien bilaketa. Aingeru Epaltza

Mentxuk edan barik lagatako burbon hondarra **eztarriratu** zuen. Josu Landa

Janaria presaka **eztarriratzean** argituko balitz bezala gosearen sekretua. Felipe Juaristi

---

eztatiztika ik **estatistika**.

---

eztegu ik **eztei**.

---

eztei *(orobat **eztai** g.er. eta **eztegu** g.er.)* **1** *iz* ezkontza; ezkontza ospatzeko egiten den oturuntza edo jaia.

Sansomen **ezteiak** . Elizen arteko biblia

Jessicaren **ezteiak** dituk! Itxaro Borda

Ezteiak Izturitzeko Santa Eulalia elizan egin ziren. Aingeru Epaltza

Azken finean abentura hori ongi bukatzen bada, igurikitzen dudan bezala, **ezteiak** egin ahala beharko da haren berri eman. Jon Muñoz

Jainkoaren erregetzarekin, bere semearen **ezteiak** ospatzen zituen erregearekin bezala gertatzen da. Elizen arteko biblia

Neure **ezteietan** pentsatzea da penatzen nauen gauza bakarra. Jon Muñoz

Izan zaitezte nagusia **ezteietatik** itzuli zain dauden morroiak bezala. Elizen arteko biblia

Orduan, Labanek auzoko guztiak **ezteietara** gonbidatu zituen. Elizen arteko biblia

Hemen ezkontzea erabaki baitzuten, Errekarte ondoan dagoen Loinazko ermitan hain zuzen, eta, McCartneytarrak familia ugaria izaki, autobus osoa bete zuten, **ezteiekikoak** egitearekin batera turismo pixka bat ere egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hamaika ergelkaria aditu eta ikusia nago **eztei** zibil, ezkontz natural, lagunarteko urtartze, boda liberal eta gisakoak aitzaki. Patziku Perurena

Hain zuzen ere Beltraneko senar-emazte diren Joxakin Otermin eta Isabel Sagastibeltzari, beren urrezko **ezteiak** zirela eta: [...]. Patziku Perurena

Geure eguneroko bizitzako gertakari kimikoak elkarri kontatuz ospatuko ditugu Kimikarekiko geure zilarrezko **ezteiak** . Juan Garzia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txerrenkume honek nire **eztei** gauean bahitu ninduenetik, horrela mendekatzen dut ahal dudan bakoitzean. **Eztei** -jaiak amaitu zirenean, Tobitek Tobiasi deitu eta esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Erizaina isildu egin da, apaizak hasiera eman baitio **eztei** -mezari. Anjel Lertxundi

Urkiolako jatetxeetako batean egin dugu **eztei** -bazkaria. Anjel Lertxundi

Gero bikotearen **eztei** argazkietarik handiena hartu eta erakusleihoaren erdi-erdian paratu zuen. Harkaitz Cano

Adiskidea, nola sartu zara hemen **eztei** -jantzirik gabe? Elizen arteko biblia

Mutilak suak irentsi zituen, neskatxentzat **eztei** -kantarik ez. Elizen arteko biblia

Bisirrari agindu zion semea bere jauregira eraman zezala, eta **eztei** ospakizunak bertan behera gera zitezela. Patxi Zubizarreta

Eztei -otordua.

Neskaren etxera joan zen, eta **eztei** -oturuntza eskaini zuen han, gazteek egin ohi duten bezala. Jose Antonio Mujika

Afari hura zinez **eztei** afari bat zen. Jon Muñoz

Baina inor ezin da indarrean **eztei** paliora eraman. Koro Navarro

Eztei -koroa janzten duen senargaiaren antzeko naiz, bitxi ederrez apaintzen den andregaiaren antzeko. Elizen arteko biblia

Eztei -segizioa. Elizen arteko biblia

Luze gabe, ezkonberriak **eztei** gelan elkartu ziren eta, Zobeida larrugorritan geratu zelarik, Ala Al-Dinek ederra iritzi zion, zilarra bezain garbia, eta palmondo gazte baten enborra bezain sendo eta lerdena. Patxi Zubizarreta

Eztei -egunerako hogei egun falta zirenean, zalditik erori eta eskuin hanka hautsi zuen. Felipe Juaristi

Buka ezazu Learen **eztei** -astea eta, gero, Rakel ere emango dizut beste zazpi urteko lanaren truke. Elizen arteko biblia

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erret **Ezteiak**. Iban Zaldua

Ogi- **ezteiak** igarota, Martin garai bateko ibilietara bueltatu zen. Koro Navarro

5 (singularrean)

Emaztea haurdun zegoela gaztigatu zigun gutunaren erantzunean, aldiz, nik ez nion **ezteiaren** poza zapuztu nahi izan. Anjel Lertxundi

6 irud/hed

Koalizio gobernuaren **ezteia** barne politikek amaiaraz dezakete: lan merkatuaren erregularizazioak, osasun arloko erreformak eta hezkuntzak, nagusiki. Berria - Mundua

7 ***eztei bidai*** ezkondu ondoko bidaia.

Munduaren itzulia haizearen lau norabideetara egiteko **eztei-bidaia** baterako hegazkin billeteak. Itxaro Borda

Soilik ingeles txoro batzuei bururatzen zaie **eztei bidaian** Bilbora etortzea. Joxemari Iturralde

Espainian jendea ezkondu eta **eztei bidaian** Varaderora joaten da oraindik ere. Jon Muñoz

Eztei bidaia Madrilen eta Sevillan egin ondoren, bizitza berri bati ekin zioten Artozkin. Edurne Elizondo

Cancun genuen **eztei-bidaiako** jomuga. Joan Mari Irigoien

Hau ez da **eztei-bidaiari** ekiteko modua, halako buruhausteei jirabiraka. Mirentxu Larrañaga

Azkenean **eztei-bidaiatik** etxera itzultzean dalia gorrien antzeko landareek etxea estaltzen zuten, lore betean eta kulunkari. Ibon Uribarri

8 ***ogi eztei*** *pl* eztei bidaia.

Ogi-ezteiak igarota, Martin garai bateko ibilietara bueltatu zen. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alabaren ezteiak (4); **baroien ezteiak** (5); **bere urrezko ezteiak** (3); **beren urrezko ezteiak** (14); **da eztei** (3); **diamantezko ezteiak** (6); **dira ezteiak** (3); **dituzte urrezko ezteiak** (4); **eta eztei** (12); **eta ezteiak** (6); **eta ezteietara** (3); **eta gero ezteiak** (3); **ezpeletako baroien ezteiak** (4); **eztei bidaia** (12); **eztei bidaia eta** (3); **eztei bidaian** (12); **eztei ederrak** (3); **eztei egun** (4); **eztei eguna** (4); **eztei egunean** (6); **eztei gaua** (3); **eztei gauean** (8); **eztei gauean bahitu** (3); **eztei gelara** (3); **eztei horiek** (5); **eztei kanta** (7); **eztei meza** (3); **eztei otordua** (4); **ezteiak egin** (3); **ezteiak iragan** (3); **ezteiak joanden** (3); **ezteiak ospatu** (9); **ezteiak ospatu dituzte** (4); **ezteiak ospatzeko** (4); **ezteiak ospatzen** (4); **ezteiak zirela** (4); **ezteien eguna** (3); **ezteietara gonbidatzen** (3); **ezteietara joateko** (4); **gero ezteiak** (4); **gure eztei** (7); **lekuine urrezko ezteiak** (3); **senpere urrezko ezteiak** (3); **urhezko ezteiak** (6); **urrezko eztei** (5); **urrezko ezteiak** (83); **urrezko ezteiak ospatu** (8); **zen eztei** (6); **zilarrezko ezteiak** (7); **ziren ezteiak** (3)

---

ezteikari *adlag* ezteiak direla eta.

Zorionean daude urre **ezteikari**. Herria

Nahiz ohituak gauden holako ospakizuneri, ez dugu bikote hain gazte ikusteko usaiarik urrezko **ezteikari**. Herria

---

ezteiliar *iz ipar* ezteietara deitu edo gonbidaturiko pertsona.

Nahi zuen, Iruñeko bestetan bezala, **ezteiliar** bakoitzak lepoan ezar zezan mokanes gorria. Daniel Landart

Elizkizun eder baten ondotik, **ezteiliar** guziak bildu dira Larzabalen Ezpeletenean. Herria

Meza biziki kartsua eta ederra izan da, **ezteiliar** guziek parte hartzen zutela otoitzetan eta kantuetan. Herria

Meza eder baten ondotik **ezteiliarrek** ez zuten lokartzerik zeren giro gaitzean jostarazi baititu "Gau xoriak" kantari soinulari taldeak aperitifa denboran bai ta gau guzian. Herria

Theo esku zartaka hasi zen eta hark ireki bidetik **ezteiliarrak** txaloka zinpurtu ziren. Itxaro Borda

---

ezten *iz* zurezko kirten edo makila batean itsasten den altzairuzko punta zorrotza.

Sastakai baten, **ezten** baten eta hortz batzuen zauriak daramatzat nire baitan; eta zama luze eta astun batena ere bai. Agustin Otsoa

Erregistratu zuten zerbitzariek kalte egiteko armarik ba ote zeraman ikusteko eta abitu-mahukan **ezten** bat aurkitu zioten, sandalien zorua konpontzeko erabiltzen zuena **Ezten** bat dakar berekin, haren bidez zu hiltzeko, eta suharri bat, harekin gaztelu honi su emateko Askoren artean

2 irud/hed

Deabruak, on guztiak nola oztopatu asmatzen ibiltzen zenez, **ezten** hain gogorra eta haragi-tentazio hain sutsua piztu zion barruan, ezen inola ere ezin baitzion eutsi haragizko tentaldiari. Askoren artean

Kristo Jesusen odol preziatuaz askaturiko arimak bekatuaren edonolako zikinez kutsatuak ikustean, esan ezin ahalako samin- **ezten** zorrotzak bihotz-zulaturik, gupida samurrez haiengatik dolu egiten zuen. Askoren artean

3 zenbait intsektuk sabelaldearen muturrean duten arantza modukoa.

Erleak **eztia** ta eztena. Iñaki Arranz

Liztor horrek *obopositorea* deitutako **ezten** baten bidez ipintzen du arrautza haritzaren azalaren barnean eta arrautzarekin batera isurtzen duen substantziak eragiten du zuhaitzaren erreakzioa. J.M. Olaizola "Txiliku"

4 sugeen mihia.

Sugea beti hor zegoen aitzinean, alimaleko **ezten** zitalaz ziztatzeko prest. Itxaro Borda

Azkenean sugeari lepoa urratu zion, **ezten** iluna kanpoan burua batera eta gorputz malgua bestera aurtikiaraziz. Itxaro Borda

---

eztendun *izond* eztena duena, garratza, zorrotza.

Gure euskal lur honetan badela adimen txorrotxeko eta esale **eztendunik**. Pello Zabala

Kabiar sandwich batek zein egoera igarotzen dituen hurrenez hurren fantasia bihurtu eta epigrama **eztendun** bezala berragertzeko. Xabier Olarra

---

eztenka 1 *adlag* eztentadak eginez.

Baina, halako batean, eliztarren artean Peppone ikusi zuenean, **eztenka** hasi zen: [...]. Koldo Biguri

Goizaz geroztik Lepic jauna **eztenka** ari zaionez, izugarrikeria hau atera zaio Axenariori: [...]. Itziar Otegi

2 *eztenka nahian adkor* zirikateko.

-Ez duk hau, ez -esan dit **eztenka nahian** - batere gure aldekoa! Txillardegi

Alajainkoa! -erantsi du beste batek **eztenka nahian**. Txillardegi

-Nirekin gelditu beharko duzu, Garazi... -nik **eztenka nahian**. Txillardegi

---

eztenkada 1 *iz* ezten kolpea.

Liztorraren **eztenkada** bezalakoa egin zitzaidan anaiaren solasaldi laburra. Joan Mari Irigoien

Nor zen arratoien ausikietarik eta suge pozoitsuen **eztenkadetarik** atera ninduen andere hori? Itxaro Borda

Lurraldeko biztanleak botatzen ez badituzue, gelditukо direnak begian arantza nahiz saihetsean **eztenkada** bezain mingarri izango dituzue. Elizen arteko biblia

So egiozue zuhaitz-hosto bati, ikusi haren zain apetatsuak, itzalak eta eguzkiak ñabararaziriko tonuak, euri tanta batek hantxe harrotu duen puztura, intsektu batek utzi duen **eztenkada**, barakuilutxoaren arrasto zilarkara, udazkenak markatu duen lehen urreztadura hilgarria. Juan Garzia

· *(intsektuena)* Liztor **eztenkadaren** eragina egin zidan. Joan Mari Irigoien

2 irud/hed

Bihotzean **eztenkada** bat sentitu nuen: jelosiaren lehen **eztenkada** izan zen. Joan Mari Irigoien

Korsikarraren **eztenkadak** (Brumaireren 18ko estatu kolpeak) erakarri zuen legegintza zibilerako berebiziko bultzada. Andres Urrutia

Ustekabeko **eztenkada** izan zen hura niretzat, ez bainengoen antzeko ezer ezagutzeko prestatua. Hasier Etxeberria

Kristal hautsien **eztenkadek** erre baitzidaten barrua. Hasier Etxeberria

Gogoan har, Jauna, zeure zerbitzari iraindua, herriengandik jasan behar ditudan hainbat **eztenkada**. Elizen arteko biblia

Aukerarik izanez gero, halako plazer txiki bat eragiten zien solaskideari **eztenkadaren** bat sartzeak: harrapa ezazu hau!; tori, irents ezazu zuk beste hau! Jose Morales

eztenkadak botatzen zituen etengabe Harry hain pertsona desatsegina zergatik ote zen galdetuz. Iñaki Mendiguren

Galtzaileen kontrako **eztenkadak** gupidagabeak izaten ziren. Alberto Ladron Arana

Besoak antxumatu nituen, bizkaitar madarikatuaren **eztenkadak** pazientziaz eramateko-. Alberto Ladron Arana

Gainera, hitz egiten zuen bitartean, oso keinu egokiak egiten zituen begi bat kliskatuz, eta imintzio horiek oso ukitu garratza ematen zieten haren **eztenkada** satiriko ugariei. Jose Morales

Horientzat gorde izan baitituzu **eztenkadarik** petralenak, ustez traizionatu zintuztenentzat, guztiontzat alegia. Xabier Montoia

3 (hitz elkartuetan)

Liztor **eztenkadaren** eragina egin zidan. Joan Mari Irigoien

---

eztenkari *izond* eztenkatzen duena.

Gure idazleak prosaz eragin nahi duen dardarizoa ez baita bere poemagintza klasikozaleak sortarazten digun hunkitze gozo, otzan eta barrenkoia, bestelako garratz eta **eztenkari** bat baizik, Perurenaren guztizko zigilu bihurtu den berori, alegia. Patziku Perurena

Bazuen zugana oldartzeko moduan halako zer probokatzaile bat, halako adimen zirikatzaile eta **eztenkari** bat. Oskar Arana

2 (adizlagun gisa)

Biraoak gero eta sarriagoak ziren; ezin antzeman zitekeen nork esaten zituen, baina airea urratzen zuten, **eztenkari**, makur, argi biziak itsututako saguzarrak balira bezala. Jose Morales

---

eztenkatu, eztenka(tu), eztenkatzen 1 du *ad* eztenaz ziztatu.

Egiten duana egiten duala hori lortzeko,ez zikindu pentsamendua, eta ez xedatu arima heure amaren aurka batere: utz ezak zeruaren eta bular barnean dauzkan arantzon esku, haiek dezaten **eztenka**. Juan Garzia

Hutsik sentitzen zen artean, baina burua zorabia ziezaioten, bihotza **eztenka** ziezaioten, gogoa muturreko erabakietara bultza ziezaioten behar zuen premiaz. Karlos Zabala

2 irud/hed

Zorionaren ehizan genbiltzanok ehizatzen gaitu orduan zorigaitzak, zeinak, handik harat, behin eta birritan ziztatzen eta **eztenkatzen** baikaitu, harik eta bere azken ziztadan eta eztenkadan betiko ehizatzen gaituen arte. Joan Mari Irigoien

---

ezterenzubitar *(orobat **ezterenzubiar**) izond/izlag/iz* Ezterenzubikoa, Ezterenzubiri dagokiona; Ezterenzubiko biztanlea.

Halaber, ikertzaile eta irakasle **ezterenzubitarraren** galerak hutsune «nabaria» utziko du hainbat esparrutan, «bere gizatasunagatik, eta, bereziki bere Euskal Herriaren aldeko grinagatik». Berria - Kultura

Funtsean Eñaut Etchamendi **ezterenzubiar** idazleak baditu liburu batzuk, hala nola "Gilen", garaztar hutsez idatziak orain duela hogei bat urte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jonnhy Curutchet **ezterenzubiar** bertsularia. Herria

Nabarrengoseko apezetxera heltzearekin argi bila, hango **Ezterenzubiar** apez euskaldunaren ganik bilduko ditu gure mugetan hain usu entzun diren hitzak: "Jendea jende!". Herria

Lan gaitzari lotu zen **ezterenzubiar** erakaslea, Euskal Herriko historiaurretik orainartinoko historiaren aurkezte bidean. Herria

Azkenik eta hobekienik botaluzea kondatu daukuna Manex Iturbide **Ezterenzubiarra** da, 91 urte ditu, artzain joan zen bortura hameka urtetan 1923-an, hamar urtez arizana da joko hortan. Herria

---

eztetika ik **estetika**.

---

ezti 1 *iz* gai likatsua eta oso gozoa, erleek egin eta abarasketan biltzen dutena.

Jan **eztia**, ene seme, ona da eta, gozoa da abaraska ahorako. Xabier Kintana

-Hator -esan dit besotik tiraka-, erleei **eztia** kendu behar zienagu. Pako Aristi

Irin garbia, olioa eta **eztia** eskaini zenizkien opari atsegingarri gisa. Elizen arteko biblia

Zer **eztia** baino gozoagorik? Zer lehoia baino indartsuagorik? Elizen arteko biblia

Jaunaren uztarria **eztia** baino gozoagoa da eta gozotasun guztiak baino areagoa. Joan Mari Lekuona

Ez diot hau saminki, baizik kezkati, ahoan min duenari **eztia** karmin egiten bazaio ere. Pello Salaburu

Esnea eta **eztia** darizkion lurraldea.

Baso hartara sartzean, ikusi zuten **eztia** zeriola. Elizen arteko biblia

Hartu hamar ogi, sutopil batzuk eta ontzi bat **ezti**, eta zoaz harengana. Elizen arteko biblia

Ez du onik egiten **ezti** gehiegi jateak, ez eta ohore gehiegiren atzetik ibiltzeak ere. Elizen arteko biblia

Fanch erle eta **ezti** ekoizten hasi zen Eussa uharteko Ar Lann eskualdean. Itxaro Borda

Lau errekek, urezkoak, esnezkoak, **eztizkoak** eta ardozkoak lau haizeetara gurutzatzen dute baratze miresgarria. Aurelia Arkotxa

-Zure hitzak **eztizkoak** zaizkit, Um Hamida.** Alemanek sotoan otarre bat bete arrautza eta poto bat **ezti** aurkitu zituzten -Atxiki ezazu gogoan, Louis Nedelecek bi kilo **ezti** nahi dituela! Patxi Zubizarreta

Luzatu zuen, beraz, eskuan zeraman makila-muturra eta, **eztitan** sarturik, ahora eraman zuen. Elizen arteko biblia

(*ik beherago* 10.) Askoren artean

2 (izenondoekin)

Ahoan **ezti** gozoa bezala gertatu zitzaidan, baina, jan nuenean, sabela garraztu zidan. Elizen arteko biblia

Haren jarrera argi eta garbiak min ematen zidan, bai, baina **ezti** makatzaren antzekoa zitzaidan, errealitatea aurrez aurre erakutsiz, ez ankerkeriaz, baizik eta garbitasun basatiaz. Juan Kruz Igerabide

Gazta, irina, **ezti** gorria eta Pramnioko ardoa nahastu zituen; belar-ur kaltegarriak bota zizkion gainera, jaioterria ahantzarazten zuten belarrak. Juan Kruz Igerabide

Eta **ezti** berezi hura, halatan, berant gabe iritsi zen, Mignonen antza zuen emazteki baten eskutik. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezti-erleei gustatzen zaizkien gauzen perfumea dago. Anton Garikano

Hitz atseginak, **ezti**-abaraska: ahorako goxo, gorputzerako osasungarri. Elizen arteko biblia

Ezti tanta. Patxi Zubizarreta

-Tristurak bakarrik ez, Andreas, **ezti**-bits honek ez ditu tristurak bakarrik arintzen. Anjel Lertxundi

Bigorreko Bagneres herrian pozoitutako **ezti** poteak atzeman dituzte. Berria - Euskal Herria

Israeldarrek biltzen zutenari "Mana" eman zioten izen. Zuria zen, txarrangil-haziaren itxurakoa eta **ezti**-opilaren gustukoa. Elizen arteko biblia

Erregina apain-apain jantziko dute, txukunduko dizkiote hegoak, igurtziko diote gorputza **ezti**-urez. Anjel Lertxundi

Edontzi ertzak **ezti** likore gozoz eta beilegiz gantzutzen. Xabier Amuriza

Ezti-usain betegarria zerion haren arropari, *halvah* **ezti**-opilarena seguru aski. Anjel Lertxundi

Ikusi nola argitu zaizkidan begiak **ezti**-pittin bat jan dudalako. Elizen arteko biblia

Ez zioten xanpainarik eman Nofuturi; bai, ordea, **ezti**-ogitxoz mukuru betetako plater bat. Jon Muñoz

Bere zigarroaren belarrak **ezti** usaina botatzen zuen, pipa-tabakoa bailitzan. Bernardo Atxaga

Anaia Juan gizon txikitxo bat zen; bizar beltza zuen, begirada distiratsua, molde leunak, ahotsa **ezti**-jarioa. Josu Zabaleta

Eta gazte aleman alferrontzi haiek dibertitzen, **ezti**-mamitan bizitzeko dirua baitzuten. Fernando Rey

-Aireak **ezti**-usaina du, galdu du mikaztasuna. Anjel Lertxundi

Turroi-puska krematsuak, kokozko laukitxo arrosa dardartiak, **ezti**-koloreko karamelu lodiak. Iñaki Mendiguren

Laztandu egingo du haren gorputz beltzaran **ezti** kolorekoa, eguzkiak markatugabea. Oskar Arana

Maria Birjinaren ondoan hiru birjina santu zeuden, eta **ezti**-nahasturazko hiru ontzi zekartzaten eskuetan, esan ezin ahalako usain eta gozotasuna zabaltzen zutenak. Askoren artean

· Gorpuzkeraz, planeta arrotzen batetik etorritako izaki exotiko bat ematen zuen, eta beraren buru txiki eta akatsgabe harekin, beraren aurpegi **ezti** kolorekoarekin, eta beraren soin-atal lirain luzexkekin. Oskar Arana

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mendi gainetan ezarri zituen, landako fruituz elikatu; basa **eztiz** hazi zituen, harkaitzetik sorturiko olioz; Elizen arteko biblia

5 irud/hed

Eztiz blaitu ziren Migelen belarriak. Aingeru Epaltza

Nire belaunaldiko idazle eta irakurleek modaren **eztitan** ikusi ditugu loratzen eta modu beraren atzaparretan desagertzen laket, kausi, taferna, populu, pairatu, domeinatu, paia eta antzeko hitz asko. Anjel Lertxundi

6 *izond* gozoa, emea, leuna. ik **eztitsu**.

Egoera honek ezer onik ez zidan ekarriko: gizon **eztia**, itsuski ederra, bere bidetik joanen zen. Itxaro Borda

Honela mintzo da Jeseren seme David, goienean ezarritako gizona, Jakoben Jainkoaren gantzutua, Israelgo kantari **eztia**. Elizen arteko biblia

Boz **ezti** goxo bat. Michel Oronoz

Hau ez da maitasuna, baizik eta maitasunaren gezur **ezti**, leun, betierekoa. Iñaki Iñurrieta

Hiztun **eztia**, errekastoaren zurrumurrua bezalakoa, ezpainetan baino begietan irriñoa distiratzen zitzaiola. Gotzon Garate

Ahots **eztiko** gizon batek Zikreko hainbat bertset kantatu zituen. Patxi Zubizarreta

Esan ohi zuen txokolatea bezalakoa dela bizitza: baduela alde bat garratza, eta baduela alde bat **eztia**. Juan Kruz Igerabide

Eibarrek beste astebetez luzatu du bizi duen une **eztiari**, atzo Terrassa 1-0 menderatu ondoren. Berria - Kirola

Jakintsuaren hitz **eztiak** errazago aditzen dira ergelen buruzagiaren deiadarrak baino. Elizen arteko biblia

Orduan etorriko zaizkit gogora ene ametsaren erro sakon eta **eztienak**. Piarres Aintziart

Ahal izan dudan modurik **eztienean**. Koldo Izagirre

Jainkoa dut lekuko nola nagoen zuek guztiok ikusteko irrikaz Jesu Kristoren maitasun **eztiaren** eraginez. Elizen arteko biblia

Harrezkeroztik, esperantza **eztiak** ordezkatu du kezka krudela. Jon Muñoz

Eztarrian gora igotzen zitzaidan zoriontasunaren dasta **eztia**. Juan Kruz Igerabide

Eta denboraldi oro har **ezti** hori, orain gelaz jabetzen den ke, urrin, izerdi, sexu eta hazi usainarekin nahasten zait, dena nahas-mahas. Patxi Zubizarreta

Zangoak azkartu ahalean, moteltasun **ezti** bat nagusitu zaio gogoan. Aingeru Epaltza

Gozamen **ezti** batek hartu ninduen: hona, arrazoia nuen. Monika Etxebarria

Egiatasun atsegina, fidantzia **eztia**, adiskidantza sentikorra balioesten ez ditudalako. Jon Muñoz

Ravignan kaleko bere etxean, Ruche jaunak ez zuen aspaldi handian ezer espero; gainbehera **eztian** eman nahi zuen bere azken adina. Jon Muñoz

Zer nolako asturugaitzaz, sentimendurik **eztienak** ez diezazuke beldurra baizik sor? Jon Muñoz

Gogoeta **ezti** horiek lagun oheratu nintzen. Jon Muñoz

Ez uste gaitzesten dudanik sentimendu onest eta **ezti** batek ezkontideen arteko lotura eder dezan. Jon Muñoz

Begitartea zinez mudatua zuen; zuk ikusi izan diozun aurpegiera **eztia** beltzuri bilakatua zuen, bertze edertasun bat emanik. Jon Muñoz

Ez litzateke bada hanbatenaz zuhauren, zure arima zintzo eta **eztiaren** heineko gizon dohakabe bat urrikaltzea, zugatik baizik ez dena dohakabe, haren penak areago larritu nahi izatea baino, defentsa aldi berean bidegabe eta zorrotz batez? Jon Muñoz

Munduan zenik eta musikarik **eztiena** iritsi zitzaien belarrietara. Juan Kruz Igerabide

Gorputza pausan dela eta, orduan dira sortzen bidaia loriagarrienak, borroka izigarrienak, plazer **eztienak**, beldur lazgarrienak. Michel Oronoz

Sentimendurik **eztienek** bat eginik gauzkatelarik, beldurkeria lauso bat aski izanen da gu bereizteko, menturaz betiko! Jon Muñoz

Ematurik ere, alkoholaren karga **eztia** hasia zitzaidan zain-gaineratzen, eta ordu bi eta erdiak ziren. Aingeru Epaltza

Mahasti eta ogi landen erdian goiti beheiti **eztiak** uhain lurtsu bilakatzen ditu ibiltariaren urrats biziak. Piarres Aintziart

Ederra zait eta **eztia**, bainan ez dezaket hitz bat ere konpreni! Xipri Arbelbide

Normalean **eztia** zuen ahotsa gogortu egiten zitzaion Rossetti miserablea zela esatean. Ramon Saizarbitoria

Arreak zituen begiak, eta belusatua begikera, **eztia** baino **eztiagoa**. Karlos Zabala

Bai **eztia egun-argia, eta bai atsegina begientzat eguzkia ikustea! Elizen arteko biblia

Nor zara zu, ene Jainko txit **eztia**? Elizen arteko biblia

-Zinez, ene andrea zeruko aingeruak baino **eztiagoa** da. Janbattitt Dirassar

Orain denek edo kasik denek horrela egiten dute -erran zion Colettek, ahots **ezti-ezti** batekin, pentsatuz amak, azkenean, ideia hori onartuko zuela. Daniel Landart

· **Ezti eztia** hasten zaio eleka. Eneko Bidegain

Dohatsu **eztiak** lurraz jabetuko baitira. Itxaro Borda

7 (izen gisa)

Herrian jendeak esaten zuen ez zuela askorik iraungo bide hartan, bizitzaren **eztia** probatu duenak **ezti** horretara nahi izaten duela. Inazio Mujika Iraola

Garaipenaren **eztiak** galtzaileen mikatza du bestaldea, aurkiak bere ifrentzua bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxean gertatu izan baitzitzaizkidan, Bartzelonan bertan, Montserekin gauzarik berezienak, hala nola hura ezagutzea eta harekin sexuaren **eztia** dastatzea. Joan Mari Irigoien

Hitzaren **eztiak** baretzen nau. Piarres Aintziart

Zeren ukituaren **eztiaz** babesten nauten larrukiak baititut laket. Joan Mari Irigoien

8 (adizlagun gisa)

Taibele konbentzitu nahian jarraitu zuen Humirzah maisu-laguntzaileak, batzuetan **ezti**, mehatxuka besteetan. Koro Navarro

Afalondo osoan kontu egin nion **ezti** eta malenkoniatsu agertzeari, bai nire ustez aski ongi erdietsi ere. Jon Muñoz

Ez genekien hemen zinenik! -esan zizun Dolorsek inoiz baino **eztiago**. Koldo Izagirre

Van Daan jauna **ezti-ezti** dabil nirekin. Josu Zabaleta

Hegaztiak ere, **ezti-ezti** mintzatuz gero, errazago hurbilduko zaizkizu. Gotzon Garate

Zure** aurrean **ezti-ezti** jartzen zaio ahoa eta zure hitzen aurrean miresmena agertzen. Elizen arteko biblia

Eskua luzatu, **ezti-ezti** heldu eta ez nau bakarrik utzi, zuekin batera putzutik atera nauen arte. Askoren artean

9 *basa-ezti* etxeko ez diren erleen eztia.

Joanek gamelu-ilezko jantzia zuen soineko eta larruzko uhala gerriko, eta matxinsaltoak eta **basa eztia** zituen janari. Elizen arteko biblia

Mendi gainetan ezarri zituen, landako fruituz elikatu; **basa eztiz** hazi zituen, harkaitzetik sorturiko olioz. Elizen arteko biblia

10 *ezti-ezkiki*

Gaua jin zen **ezti eztiki**. Michel Oronoz

Egin da iraultza hilik gabe **ezti-eztiki**, goxotasunean. Herria

Mokoa kontu handiz higituz, Nofutur **ezti-eztiki** miaka ari zen Ruche jaunaren ile zurietan. Jon Muñoz

Perpausak luzatzen dira azkenik ez balute bezala, boza geroago eta gorago haietan gaindi baitoa, gaina jo ondoan, **ezti-eztiki** berriz jaitsi aitzin. Aurelia Arkotxa

Eliza dorrean ezkilak **ezti eztiki** abiatzen dira eta bakearen kantua errepikatzen dute, herria iratzartu gabe. Michel Oronoz

11 *eztitan adlag* ezin hobeki.

Gero eta hurbilago sentitzen du hiru txita eta ama oiloaren zirin-usaina, **eztitan** ditu belarriak hegaztien txio alaiekin. Anjel Lertxundi

Léa, ordea, **eztitan** zegoen, ez baitzuen besterik nahi, ezpada gezurrezko bi jeinu haiek amorraraztea, asperraldia zorroztasunarekin nahasten baitzuten, eta gogortasuna, berriz, sakontasunarekin. Jon Muñoz

Guri gosaria prestatzeko lanean ziharduten ama-alabak **eztitan** zeuden musika amerikar komertzialarekin. Edorta Jimenez

Amets bat da eta ezinezko bat da, zeren, gutien igurikitzen dugunean, uste izanik ezen **eztitan** gaudela, muga orotarik harat, aldiz, liztorrak ustekabean zizta baikaitzake eta hala bihur baitaiteke istant ezin laburrago batean libertatearen eztia libertate faltaren ezten. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ahots ezti (17); **ahots eztia** (7); **ahots eztiaz** (5); **ahots eztiz** (6); **aro ezti** (7); **aro eztia** (5); **arras ezti** (5); **baino eztiagoa** (4); **bat ezti** (4); **bezain ezti** (4); **bezain eztia** (4); **bezain eztiak** (4); **biper ezti** (4); **biper eztia** (13); **biper eztiaren** (4); **boz ezti** (4); **da eztia** (5); **esnea eta eztia** (34); **eta ezti** (43); **eta eztia** (67); **eta eztia darizkion** (25); **eta eztiago** (6); **eta eztiak** (6); **eta eztiz** (9); **eta eztizko** (4); **ezti aire** (4); **ezti baina** (4); **ezti bat** (39); **ezti batean** (5); **ezti batek** (13); **ezti batekin** (11); **ezti baten** (4); **ezti batez** (8); **ezti eta** (64); **ezti ezti** (15); **ezti eztia** (23); **ezti eztia** (23); **ezti eztiki** (8); **ezti gehiegi** (5); **ezti gozoa** (7); **ezti hori** (11); **ezti horiek** (5); **ezti hura** (8); **eztia baino** (9); **eztia bezain** (11); **eztia bezain gozoa** (4); **eztia bezala** (6); **eztia da** (4); **eztia darie** (4); **eztia darizkion** (25); **eztia darizkion lurralde** (6); **eztia darizkion lurraldea** (6); **eztia darizkion lurraldera** (8); **eztia egin** (6); **eztia egiten** (4); **eztia ere** (4); **eztia eta** (40); **eztia eta esnea** (4); **eztia ez** (4); **eztia ezpainetan** (4); **eztia izan** (4); **eztia jaten** (4); **eztia zen** (12); **eztia zuen** (4); **eztiago eta** (4); **eztiak eta** (5); **eztiaren ordez** (4); **eztiz eta** (7); **gozo eta ezti** (4); **hain ezti** (10); **hain ezti eta** (4); **hain eztia** (4); **hitz eztiak** (7); **irri ezti** (6); **irribarre ezti** (7); **irribarre eztia** (8); **musika ezti** (5); **musika eztia** (5); **musu ezti** (4); **txit eztia** (8); **une eztiak** (4)

---

eztialdi *iz adkor* garai eztia.

Hortaz arizan da Hamas eta Djihadetako arduradun batzuekin, errespeta dezaten otoi joan den urtarrilean deliberatu **eztialdi** hura. Herria

Ai, erruki diet bildumagileak erosi berri duen gutiziarekin izaten duen **eztialdi** hori ezagutzen ez dutenei. Josu Zabaleta

Oraintxe buru-belarri nabilek neure **"eztialdi"** arekin. Juan Garzia

Enbarkazioa hurbildu arren, ez dira iratzarriko harik eta zarata ozena izan arte, orduan begi batto zabalduko dute, keinua eginik bezala, beldurrik gabe, harridurarik gabe, eta bestela egokituko dute gorputza lotarako, begiak **eztialdirako** itxirik. Joseba Sarrionandia

---

eztiarazi, eztiaraz(i), eztiarazten du *ad* eztitzera behartu, gozarazi, emarazi.

Han, Jesusen Berriona hots egin zuen, eta hain nabarmen ageri ziren Espiritua eta Jainkoaren indarra Frantziskorengan, non Sultana bera ere harriturik gelditu baitzen, eta, Jainkoak **eztiarazi** zuelarik, Jainkoaren zerbitzariari adeitsu entzun zion. Askoren artean

Haatik aberatsek deramaten gerla gorriak, orai, mementoan, militarren larderia batek **eztiarazirik**, ez du iduri azken hitza emana duela. Herria

Block-ean ere gauza bertsua zen; zenbait aldiz buruzagiak lanik aski bazuen gauza batzuen eginarazteko, edo bederen protesten **eztiarazteko**. Marzel Etxehandi

Behar ukan dituzte soldado zaintzaleak deitu horrarat nahasketen **eztiarazteko**, horiek oro Dinamarka, Alemania, Pakiztan, Italia eta beste herrietakoak. Herria

Bakardadearen ximikoa ahal bezala **eztiaraziz**, gogoan dudala biharko etapa. Piarres Aintziart

---

eztigailu *iz* eztitzen duen gauza.

Txarrena gogorat heldu baita holakoetan, lehen behako eta iduripenek erakutsi dutena hauxe da: bazituela bere ganbaran erremedio eta **eztigailu** batzu bainan ez, iduriz bederen, bere burua beste egin zuela erraitekorik. Herria

---

eztigarri *izond* eztitzen duena.

balada delikatu biguna eta, bere melankoliarekin, bihotzarentzat **eztigarria**, zinez "erromantikoa. Koldo Izagirre

Baina gaizki nagoelako etorri naiz kontsultara, **eztigarriren** baten bila etorri naiz. Agurtzane Juanena

---

eztikara *izond* eztiaren antzekoa.

Ederki asko ezagutzen nuen estasiak ahosabaian eragindako dasta **eztikara**. Juan Kruz Igerabide

---

eztikeria *iz* eztitasun gaitzesgarria; lausengua, losintxa.

Idoiak ez gintuen ahazten, eta oso adeitsu portatzen zen amarekin, eta nirekin zer esanik ez: batzuetan, ama eta beraren laguna igerileku ertzean lo utzita, gelara eramaten ninduen, bidean belarrira **eztikeriak** xuxurlatuz. Juan Kruz Igerabide

Eztikeriarik ez nirekin, faborez. Fernando Rey

Eztia izan behar zuen, oro har, gure erlazioak, inola ere ez **eztikeriak** joa. Joan Mari Irigoien

Argia itzuli orduko emaginak **eztikeria** gehiago egin nahi zituen nirekin, baina nik jada sartualdi arriskutsu nahikoa nuen egina. Pello Lizarralde

Zailtasunak hor daude, jakina, baina maitasunaren eta adiskidetasunaren indarra ezin da gutxietsi, diosku egileak, **eztikerietan** eta moralismo merkean jausi barik. Berria - Kultura

---

eztiki *(ETCn **637** agerraldi)* **1** *adlag* eztitasunez, emeki. ik **eztiro**.

Bizarginaren atzamar bigunek masailak **eztiki** eskuztatzen zizkioten. Lopez de Arana

Bere begi hunkigarriekin tinko begiratzen zidan, begirada pisu nekatu batez, nire giza funtsa atzemateko eranzten ninduela eta gero **eztiki** murmurikatzen zuen: "Gizakiak zeudek, motel, gizakiak zeudek". Monika Etxebarria

-Sartu, Cecily -esan zuen **eztiki** eta logelako atea giltzaz itxi zuen-. Lopez de Arana

-Egun on, maitea -esan zion **eztiki**-. Iñaki Mendiguren

-Ez, ez da faltsua -esan zuen neskak **eztiki**. Lopez de Arana

Lucyk, **eztiki**, irmoki, eragotzi egiten du besarkada. Oskar Arana

2 *ezti-ezkiki*

Gaua jin zen **ezti eztiki**. Michel Oronoz

Egin da iraultza hilik gabe **ezti-eztiki**, goxotasunean. Herria

Mokoa kontu handiz higituz, Nofutur **ezti-eztiki** miaka ari zen Ruche jaunaren ile zurietan. Jon Muñoz

Perpausak luzatzen dira azkenik ez balute bezala, boza geroago eta gorago haietan gaindi baitoa, gaina jo ondoan, **ezti-eztiki** berriz jaitsi aitzin. Aurelia Arkotxa

Eliza dorrean ezkilak **ezti eztiki** abiatzen dira eta bakearen kantua errepikatzen dute, herria iratzartu gabe. Michel Oronoz

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baino eztikiago (3); **bezain eztiki** (3); **dantzaldia eztiki** (6); **dantzaldia eztiki taldearekin** (4); **dira eztiki** (3); **dumbledorek eztiki** (3); **esan zien eztiki** (3); **esan zuen eztiki** (4); **eta eztiki** (10); **ezti eztiki** (8); **eztiki baina** (4); **eztiki bultza** (3); **eztiki eta** (9); **eztiki eztiki** (3); **eztiki taldearekin** (6); **ondotik dantzaldia eztiki** (3); **snapek eztiki** (3); **zien eztiki** (3); **zion eztiki** (4); **zuen eztiki** (10)

---

eztilizta ik **estilista**.

---

eztilore *iz* **

Beltza **eztilorea** da, hitsa eta kiratsua jareina, beturdina Palasen irudi, haritsua eta zurezkoa gazela, txatxarra eta nanoa ene grazia, gatz-harri purua, handia eta kankailua miragarria eta maiestatez betea. Xabier Amuriza

---

eztiro *(ETCn **96** agerraldi)* **1** *adlag* eztiki.

Hurbildu, eta nire alboan eseri zen **eztiro**. Juan Kruz Igerabide

Itzaliz doan argizari bat bezala amaitu zuen, **eztiro**. Juan Kruz Igerabide

Lisak sorbaldak jasotzen zituen **eztiro**, irribarreka. Karlos Zabala

Orduan, kexa edo eztabaidarik gabe, samur, mintzoak bere kanta kantatuko zuen; **eztiro** lehertuko ziren olatuak (lotan aditzen zituen Lilyk). Anton Garikano

Burua **eztiro** kulunkatzen zuen. Karlos Zabala

Lore sortek itzal egiten zieten batzuek besteei, odol zetaken pare, eta **eztiro** zurbiltzen ziren, zilar kolore gris leun-leunez margoturik. Karlos Zabala

Eztiro egin dut berba, hitzen ertzek zauri ez dezaten. Koldo Izagirre

-Zer duzu, emakume? -galdetu dio, eskua **eztiro** sorbalda gainean jarrita-. Imanol Zurutuza

Felix utzi eta Gonzalorengana, zeinek duintasunez eta **eztiro** hiltzeaz hitzegiten didan. Bernardo Atxaga

Sentibera zen, eta oso **eztiro** besarkatzen zuen. Agurtzane Juanena

"Emaztea larrutan erabilita gizona liburu bat irakurtzen jarri zenean sortu zuan", **eztiro** garratz, gomutagarri. Koldo Izagirre

Eztiro bezain emaro. Joan Mari Irigoien

2 *eztiro-eztiro*

Bazituen itsas oilar txiki tente horiak, ore geruza lodiegi baten azpian, eta tripaki karratuak, paderaren hondarrean **eztiro-eztiro** egosten. Karlos Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta eztiro (3)

---

eztitasun *(ETCn **391** agerraldi)* **1** *iz* eztia denaren nolakotasuna.

Seriotasuna **eztitasun** bihurtu zen berriro. Jon Muñoz

Begiek, lausoturik, **eztitasuna** adierazten zuten. Jose Morales

Orduan, mututu egin ninduen amorrutik **eztitasuna** sortu zen, gure ahotsek bat egin zuten, zoragarri. Koldo Izagirre

Jainkoa bereziki bertuteen ariketan bilatzen du, hala nola apaltasunaren, **eztitasunaren**, moduzkotasunaren, etsimenduaren eta gizakiek landutako beste gauza askoren ariketetan. Joan Mari Lekuona

Nik haatik eskua eskaini diot eta hark onartu egin du; eta aspaldian erakutsi ez zidan **eztitasun** horri aieru on iritzirik, saiatu naiz, auhenetan berriz hasiz, haren eskua tinkatzen. Jon Muñoz

Bat-batean, Frantzisko santuaren arima gozotasunez bete zen eta korderik gabe geratu, halakoa zen-eta doinuaren **eztitasuna**. Askoren artean

Eta gozamen horien **eztitasunak** dastatzeagatik liskar egiten didazu! denek ziurtatuko dizute arreba Ernestinak aingeru baten **eztitasuna** duela. Jon Muñoz

Amak badaki eraman onekoa izaten, baina ez da **eztitasuna** kanporatu zale, hori du txarra. Anjel Lertxundi

Senar-emazteak atseginen eta **eztitasunen** paradisuan bizi izan ziren, eta hamargarren egunean berriro ere beren etxeko atea jo zuten. Patxi Zubizarreta

Husainik **eztitasunez** erantzun zuen, solaskidearen haserrea ez eragitearren. Patxi Zubizarreta

Aurrez aurre, purpurinaz pintatutako zutabeen alboetan, San Juan, San Pedro, San Sebastian eta beste hainbat santu geneuzkan, **eztitasunez** begira. Bernardo Atxaga

2 (izenondo eta izenlagun eta kidekoekin)

Basurtokoaren nekatu ahotsari **eztitasun** berri bat igarri nion nik. Edorta Jimenez

Eztitasun handiz, ederrak burua jaso zidan, zurrutada bat ahoratu zuen eta gero ahora pasatu zidan. Juan Martin Elexpuru

Berriro besarkatu ninduen, **eztitasun** berezi harekin. Juan Kruz Igerabide

Hazpegien **eztitasun** konplexu horrek. Joxan Elosegi

-Pozten naiz zu hemen egoteaz, Diego - **eztitasun** samur baten kutsua zuela ahotsean. Jon Muñoz

Arestiko doinu latza barik, **eztitasun** mindu batez kanporatu zitzaion boza. Aingeru Epaltza

Hemen ez du harriak harritzen eta goratasunak burtxoratzen, baizik eta murruen eta sabaiaren **eztitasun** margotuak so egilea jabaltzen. Piarres Aintziart

Bakarrik gelditu nintzen orduko, **eztitasun** engainagarri hura berehala iraungi zen. Jon Muñoz

Lore lurrin astun hura gelditu zitzaion akorduan betirako, loreen **eztitasun** betegarria zen heriotza. Koldo Izagirre

Claudek kolore hura satin ñabarra zela esaten zien, beste hitzik ez baitzuen aurkitzen **eztitasun** zetazko hura, haragi arin haiek, lobuluen arteko arrakala luze fresko haiek margotzeko. Karlos Zabala

Haren **eztitasuna** xarmangarria da. Jon Muñoz

Norari begiratu zion gero gizonak, jende aurrean gehiegizko **eztitasuna** agertu izanaren damuz-edo. Anjel Lertxundi

Berezko **eztitasuna** berriz agertu zen, eta barkatua izan nintzela uste izan nuen. Jon Muñoz

Orduan gauak badu ezin erranezko **eztitasuna**, bakea, balusezko manta bat bezala, batean fresko, bestean epel, inguratzen zaituena Michel Oronoz

3 (hitz elkartuetan)

Eztitasun aurpegiz geratzen zaio telebistari begira, eta Txetxu koitadua zer egin ez dakiela. Xabier Mendiguren Elizegi

Lan gogor hori egiteko **eztitasun** poxi batekin. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta eztitasun (5); **eta eztitasuna** (5); **eztitasuna eta** (5)

---

eztitsu *izond* eztiz betea.

Jakinminez beterik, zer esanahi ezkutu eduki zezakeen Maria andreak agur esatean erabili duen tonu **eztitsuak**. Jon Alonso

Emakumeekiko etxekotasuna, gizon santuak ere desbideratzen dituen pozoi **eztitsua**, erabat saihestea agintzen zuen. Askoren artean

Kristoren gizatasun **eztitsuaren** bidez. Askoren artean

Ageri denez, hemen Karlos Setimo bilobak, Carlos V bere aitonaren hizkera elezuri **eztitsu** bera hartzen zuen. Txillardegi

Josebarekin maiteminduta zaudela ematen du! -bota nion behin bere lehengusuaz begi **eztitsuz** hizketan ari zitzaidanean. Aitor Arana

Zazpiak eta 40, aro ateri **eztitsu** harekin polliki argitzen ari, airatzen da gure arranoa bere lasterraldi oldartsuarekin. Herria

Saxoa hor zegoen, teklatu indartsuak ere bai, koruko hiru nesken ahots batzuetan **eztitsuegia**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eztitsua berriz (3)

---

eztitu, ezti(tu), eztitzen **1** du/da *ad* gozatu, leundu.

Mahatsaren mama eztia zen, bere eztiaz **eztitzen** ninduena. Joan Mari Irigoien

Arima **eztitu** egin zitzaion, eta bozkario eta loria sentipen batek hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Kattalinek giroa **eztitu** nahi du eta bere iritzia goxotasun eta diplomazia handienarekin emaiten dio. Eneko Bidegain

-Ez hadi muturtu - **eztitu** zuen ahotsa-. Aingeru Epaltza

Agureak **eztitu** egin zuen bere jarduna, gizon suminduarekin adiskidetze aldera. Patxi Zubizarreta

Lepoan jarri zion apezak eskua, eta on egin zion berotasunak, **eztitu** egin zion hesteetako oinazea. Koldo Izagirre

Gizatasunik gabeko irudi hotz haiek ezin dira inolaz ere **eztitu** musika atsegin batek girotzen duen emakume erdi biluziaren irudiarekin. Berria - Kultura

Jainkoaren haserrea **eztitzeko**. Michel Oronoz

Zaitaren nahigabea **eztitu** egin zen. Patxi Zubizarreta

Amnonen heriotzaren samina **eztiturik**, ordea, baretu zitzaion Davidi Absalomen kontrako haserrea. Elizen arteko biblia

Zonbait egunen buruan, bortizkeria **eztitu** da lehen sua piztua izana zen lekuan bainan ez da emendatu baizik, eta ez guti, itzuli hartako herri zonbaitetan! Herria

Bolikostan iduri du urte bat eta bi ilabete huntan hasia zuten krisia hura **eztituxea** dela. Herria

Zu ere sekretuaren jakinaren gainean zaudelako segurantzak **eztituko** ditu bederen gabezia krudel horiek. Jon Muñoz

Nekerik gabeko hurbiltze horrek sufrimendu guztiak **eztitzen** zizkion, gosearena izan ezik. Karlos Zabala

Raimundo Silvaren betartean bada irribarre zurbila, gizon-tristura batek **eztitzen** du biktima etsituaren itxura. Jon Alonso

Draganek belarrientzat mingarri suerta zitekeen melodia **eztitzen** zuen klarineteaz. Itxaro Borda

Haizeak **eztitu** egiten ditu doinu minak, espazioak apaldu egiten ditu hots desafinatuak, dena ordenatzen da osotasunean, eta emaitza harmonikoa duzu. Koldo Izagirre

Ezti ezazu zeure haserre-sumin hori, egizu atzera herriari halako kaltea egitetik. Elizen arteko biblia

Irriño murritz batek **eztitzen** zion arestiko behako harroa. Aingeru Epaltza

Kasu horietan zorigaitzez, kafeak ez ditzake lo eskasaren gaitzak **ezti**. Itxaro Borda

Azofrako aterpean egon naiz, itzalean, eguzkia **ezti** zedin beha. Piarres Aintziart

Orain itsasoak **eztitzen** du klima, muturreko tenperatura aldaketak saihestuz. Berria - Euskal Herria

Eztitzen da noizbait gau honetako kalda, sua eta dantza, eta hona non argi goxo epel batean agertzen dela mutiko gazte bat zaldi xuri baten gainean. Michel Oronoz

Egiarik beteenak, gordinenak eta aintzakotzat hartzekoenak erdi-gordean edo ahopean bezala esanak daude testu goresle-usteko honetan, eta bi *baiña*en aurrean ezkutaturik datoz, eta bi *baiña*en ondorengo hitz eder hutsalez **eztituak**, hain zuzen. Iñaki Segurola

Muturretako tenperaturak **eztitzen** aurkitzen dugu, landaredia bizkortzen. Iñaki Mendiguren

Horrela, bihotzaren garbitasunaz Jainkoa **eztitu** ahal izango dute eta ez ahotsaren atseginkeriaz herriaren belarriak gozarazi. Askoren artean

Leuna zakartzen edota mikatza **eztitzen**. Patxi Ezkiaga

Halaxe **eztitzen** ginen apur bat, zantarkeria haiekin, eta harexek ematen zigun bizipoz pixka bat, egun berriari aurre egiteko indartxoa. Karlos Linazasoro

Agorrileko bero handiak **eztitu** dira, egunak ere polliki laburtzen hasi. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat eztitu (6); **bat eztitzen** (4); **eta eztitzen** (3); **eztitu behar** (3); **eztitu da** (9); **eztitu dira** (4); **eztitu egin** (5); **eztitu egiten** (3); **eztitu eta** (4); **eztitu nahi** (3); **eztitu ziren** (3); **eztitu zuen** (6); **eztitu zuten** (3); **eztitzen du** (3); **eztitzen hasi** (5); **eztitzen zuela** (4); **eztitzen zuen** (5); **hori eztitu** (3); **pixka bat eztitu** (3); **urratsa eztitu** (4)

---

eztitzaile *izond* eztitzen duena.

Seme bat, anaia bat,lagun bat ala aita baten galtzea dorpea izaiten da, ez da hitzik ezkasa ordaintzen duenik, bainan gelditzen da Herri osoaren sustengua doluaren **eztitzaile**. Herria

---

eztitze *iz* gozatzea, leuntzea.

Hau berez aski gogorra izana zelarik, amerikano tratu horiek doi bat eztitua zuten baina **eztitze** horrek bere kide gogorrenekin hasarretzea ekartzen dio: israeldarreri nola sinets-araz hauek kolonizatu lur hek ez direla gehiago israeldarrenak? Herria

Eztitze baten seinaleak ikusten dituzte zenbaitek guduetan. Herria

Halako **eztitze** bat bezala sendi dela nolazpait azken bizpahiru hilabete hotan, hori ere alditzen da haatik bainan den hoberenetik ez da espantu egitekorik. Herria

Erran behar da halere Aita Sainduaren nuntzioa, Michael Courtney apezpikua hil dutela ez jakin xuxen nola, geroztik, bainan, dena den, auzien **eztitze** bat iduri du bidean dela Congo herriko errepublika batuaren auzo hortan. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eztitze bat (4)

---

eztitzearren *adlag* eztitzeko.

Kamainan etzan naiz, isiltasun eta ilunpe osoan, malura hau bakarrean **eztitzearren**. Koldo Izagirre

---

eztixago ik **eztixeago**.

---

eztixeago *(orobat **eztixago**) izond/adlag*

"Egiteko bat obratzera noa", erran nion ahaire **eztixeago** batez. Jon Muñoz

Zigor **eztixago** baten ukaiteko aski da, hemendik goiti, hobendun dela aitortzea. Herria

Ibarrola berezkoa bezalako batekin aise ari da baigorriar gaztea bezalako jokolari pollit bat, harentzat **eztixago** heldu baitira pilotak. Herria

Gorako bozak (sopraniak) ene iduriko apalekoak (altiak) baino **eztixago** bi bozetako kantuetan. Herria

---

ezto *iz* zokorrak desegiteko alperra.

Are-lana egin behar zuten **eztoak** osatzeko, lurraren sokorrak xehetuko baziren, hurritz-zarbaz landutako hesia egiteko. Pello Zabala

---

eztrada

Konduak ere xeheki eman duzte, gastuak egiten dituztela ere geroari buruz edo ondoko urtetan baliatuko diren gauza batzuendako, hala nola **eztrada** berri bat Lekorneko gaztekin betan eginez. Herria

---

eztrategia ik **estrategia**.

---

eztropezuka ik **estropezuka**.

---

eztropozo ik **estropezu**.

---

eztul 1 *iz* hasbeherapen hertsatu eta zaratatsua, gehienetan arnasbideen minberatasunak eragina; halako hasbeherapenen sail jarraitua.

Harryk osaba Vernonen **eztula** entzun zuen. Iñaki Mendiguren

Berehalaxe joan zitzaion **eztula**. Josu Zabaleta

Lehendabiziko upakadan **eztula** etorri zitzaion eztarrian gora. Unai Iturriaga

Ukabila oraindik airean, entzun nuen **eztula**, alborengoaren **eztula** erreketeen formazioaren isiltasunean. Joseba Sarrionandia

"Badator, badator berriro **eztula** zintzurretik gora", esan du berekiko. Jokin Muñoz

Etzan egin ginen, eta **eztul** batean hasiko zen laster Uriarte isila. Koldo Izagirre

Aitak **eztul** labur bat egin zuen eztarria garbitzeko. Anjel Lertxundi

Barreak **eztula** eragin zidan, **eztulak** itomena, eta halaxe egon nintzen luzaz, barre eta barre, azken hilabeteetako esturak askatzea lortu nuen arte. Anjel Lertxundi

-Hori da -baieztatu zuen Jonek bi **eztulen** artean-. Ramuntxo Etxeberri

2 (izenondoekin)

Eztul txikia egin du semeak mantaren azpian. Jokin Muñoz

Isilik geratu ziren, ez zutelako zeresan askorik, baina, batez ere, Amiano **eztul** zital batek hartu zuelako. Ramon Saizarbitoria

Hamazazpi **eztul** idor. Itxaro Borda

Hiru **eztul** gordin. Itxaro Borda

Hortxe zetorren soldadua, igual ez ninduen ikusi makurtzen, gizon oso handia zen, fusila eskuetan, bazetorren, **eztul** latza egiten zuen, eta ni begi-begira nengoen gauaren kontra, ilun-ilun ikusten zela dena. Joseba Sarrionandia

Ordu erdiko **eztul** mingarriarekin hasten zuen eguna. Jose Morales

Txakurrak, arnasa bahiturik, **eztul** lazgarria egin zuen. Anjel Lertxundi

Eztul temati batek hartu zuen Verlaque jauna. Karlos Zabala

Orratzak diskoan egiten duen **eztul** txiki horrek ez du batere ukitzen melodia. Monika Etxebarria

3 (hitz elkartuetan)

Barre-karkara garratza atera zitzaion, **eztul**-saioa egin zuen berriro, karkaxa bota zuen. Anjel Lertxundi

Barrutik zetorkion bat-bateko **eztul** erasoa ezkutatzea lortu zuen. Fernando Morillo

Horregatik, **eztul** itxurak egin nituen berriro, eta azkenerako ez dakit zer zarata mota atera zitzaidan, neronek ere ez bainekien zertan ari nintzen. Ramon Saizarbitoria

· Segitu zuen-: Haginekin libera bat, hori jarri dut, baina esango nuke gehiago ere izango dela, hogeita hamar txelin bai... ez egin berba orain... elgorriarekin bost gehiago, errubeolarekin ginea erdia, guztira bi hamabost sei... atzamar hori geldi derrepente... txakur-**eztularekin** hamabost txelin inguru. Julen Gabiria

Horrez gainera, orobat nire esku ditut, eta poztuko zaitu entzuteak, Miss Cardewren jaiotza-agiria, bataio-agiria, kukurruku **eztularen** agiria, erroldarena, txertoarena, sendotzarena eta elgorriarena; bi elgorri motena, bai Alemaniakoa bai Ingalaterrakoa. Antton Olano

4 ***eztul egin*** *(orobat* ***eztula egin****)*

Eztul egin du norbaitek. Koldo Izagirre

MITCHek hasperen eta **eztul egin** du. Xabier Paya

Autoa, kez beteta; ni, ordea, **eztula** ere **egiteko** beldurrez, halakoa nuen-eta gorputz guztiko ataletako min sorra. Anjel Lertxundi

Maitagarriak mahaiaren inguruan jesartzen dira, perretxikoetan, eta hasieran ondo portatzen dira eta mahaitik kanpora **egiten** dute **eztul**.· Ez zuen **eztulik egin**. Julen Gabiria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahuntzaren gauerdiko eztula (28); **baina eztula** (3); **bi eztul** (3); **edo eztula** (3); **eta eztul** (23); **eta eztul egin** (6); **eta eztul txikia** (3); **eta eztula** (9); **ez eztulik** (4); **eztul artean** (3); **eztul bat** (3); **eztul batean** (4); **eztul egin** (41); **eztul egin du** (3); **eztul egin eta** (4); **eztul egin nuen** (3); **eztul egin zuen** (22); **eztul eginarazi** (3); **eztul egiten** (10); **eztul eta** (9); **eztul lehor** (5); **eztul txiki** (8); **eztul txiki bat** (5); **eztul txikia** (6); **eztul txikia egin** (4); **eztul zital** (3); **eztula baino** (3); **eztula egin** (16); **eztula egin nuen** (3); **eztula egin zuen** (9); **eztula egiten** (7); **eztula entzun** (4); **eztula eragin** (4); **eztula eta** (13); **eztulak eman** (3); **eztulak ez** (3); **eztularekin batera** (3); **eztulik egin** (6); **eztulik egin gabe** (3); **gauerdiko eztula** (29); **zuen eztul** (4)

---

eztulaldi *iz* eztul egiten den aldia.

Eztulaldia baretzen hasi zitzaion. Anjel Lertxundi

Hiru mailatik behin, gelditu eta **eztulaldi** labur bat egiten zuen. Ander Irizar

Eztulaldi txar batek harrapatu nau. Txillardegi

Andres egun horretantxe **eztulaldi** makur batek jo zuen, eta medikuarenera eraman behar izan zuten presaren presaz. Jokin Muñoz

Eztulaldi gogor batek eraso ziolarik, zenbait minutuz ezin izan zuen erantzun nire lagun gizarajoak. Koro Navarro

Motorra, **eztulaldi** antzeko batzuk egin eta gero, geratu egin zen. Anjel Lertxundi

Eztul egin zuen gero eta makurtu behar izan zuen, **eztulaldiak** erasana, karkaxa botatzeko, karkaxa beltz lodia lurraren gainera botatzeko. Felipe Juaristi

---

eztulka **1** *adlag* eztul eginez.

Gizon talde batzuk edaten ari ziren salmahaiaren aurrean zutik, **eztulka**, listuka, begiak ireki ezinik, erabat esnatu nahian ardo zuriaren eta pattarraren laguntzaz. Karlos Zabala

Azkenean, **eztulka** eta muki-jario, txanoraino estalita, 404tik atera, eta zuzen-zuzenean abiatu zen, ziztu bizian, inprimatuen gelara. Jon Muñoz

Eztulka zetorren Mirande, ur arrasto nabarmen bat utziz. Harkaitz Cano

Eztulka ari naiz, goitika egiteko ahaleginean, itolarrian. Mirentxu Larrañaga

Arnasa hartzen dugun bakoitzean usinka edo **eztulka** hasten gara, ehotzen ari garen piperbeltz pilagatik. Josu Zabaleta

Une hartan, urduri zegoelako-edo, amonari zerbait joan zitzaion kontrako eztarrira eta **eztulka** hasi zen, **eztulka** eta **eztulka**. Joan Mari Irigoien

Hasi omen zen **eztulka**, eta ezin buelta eman. Arantxa Iturbe

Eztulka hasteraino egin zuten barre. Anton Garikano

Egun batez, besteak bezalakoa izan behar zuen egun batez, Adan **eztulka** esnatuko zen, eta eztarriko minarekin, urdaila nahastuta. Bernardo Atxaga

Ura antzo zurrupatu dut airea, kontrako eztarrira joan zait, **eztulka** hasi naiz, eta gero, azkenean, lortu dut behar bezala arnasa hartzea. Mirentxu Larrañaga

Noraren aita **eztulka** hasi zen, bat-batean eta hauspo-jauzika, edaria kontrako eztarritik joanda baino larriago. Anjel Lertxundi

Burua beste aldera biratu zuenean **eztulka** ihes egin zion biriketako keak. Unai Iturriaga

Ito beharrean hasi gara **eztulka**. Mirentxu Larrañaga

Aldiro **eztulka** eta itoka hasten den abioneta horietakoa izango da, zeharo izututa egingo dut bidaia osoa. Joseba Sarrionandia

Virgil tartekoa zen garaieraz, baina oso lodia; mantso ibiltzen zen, eta aski zuen pixka bat mugitzea **eztulka** eta arnasestuka hasteko. Xabier Olarra

Hodei zuri batez inguratuta aurkitu zituzten euren buruak bhopaldarrek duela 20 urteko gau hartan, **eztulka** eta malkotan esnatu zirenean. Berria - Gaiak

Negua gordinenean zegoen, eta baneramatzan pare bat egun **eztulka** eta zintz eginez pabilioiko korridore luzeetako aire-lasterren kausaz. Anjel Lertxundi

-Snape izango da epaile? -esan zuen ahobete lokatz **eztulka** kanpora botaz-. Iñaki Mendiguren

2 (izen gisa)

Azaroan sartu ginen eta azaroko egun batean **eztulka** larrian hasi zen, eta, ohiko karkaisekin batean, odola eta odolbilduak ere espektoratu zituen. Joan Mari Irigoien

3 (hitz elkartuetan)

Nire **eztulka**-saio guztiak gorabehera, ongi omen nengoen, iragarri zidan. Mirentxu Larrañaga

Zerbitzuburua barre-**eztulka** hasi zen, zer egin ez zekiela, bere zuzendari jaunaren aurrean ziztorka eman ziezagutela agintzeko uzkur. Koldo Izagirre

4 irud/hed

Barne-minixtroak buruko mina eta Frantzia guzia **eztulka** ! Gaixo gizona eta gaixo gu! Herria

Eztulka dabiltza errebolberrak ere, nonbait. Harkaitz Cano

To! Motorra **eztulka** ! Hozten ari da. Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta eztulka (22); **eta eztulka hasi** (11); **eztulka ari** (10); **eztulka ari zen** (3); **eztulka eta** (14); **eztulka hasi** (34); **eztulka hasi da** (5); **eztulka hasi zen** (22); **eztulka hasten** (7); **eztulka hasten da** (5); **zen eztulka** (5); **zuen eztulka** (3)

---

eztulkari *izond* eztulka ari dena.

Amorantea izango dela erabaki dugu eta inbidia eman digu agure xahar **eztulkariak** . Harkaitz Cano

---

eztulketa *iz* eztul egitea.

Ez erretzeko eskatu zuen norbaitek **eztulketan** , zabaltzeko leihoak. Koldo Izagirre

---

eztulño *iz adkor* eztultxoa.

Postariak **eztulñoa** egin zuen eta pauso bat eman zuen atzerantz. Berria - Kultura

---

eztultxo *iz* eztul txikia.

Lajosek, nahita egindako etenaldi labur baten ondotik, bi "umezurtzak" zirela-eta jadanik erabat errudun sentitzen ginela ikusi zuenean, ohikoak zituen bi **eztultxo** egin eta eskujokari-saioari ekin zion. Ander Irizar

Eztultxo bat eginez adierazi zidan bere presentzia. Anjel Lertxundi

-Barka, mesedez -erregutu zuen Anastasiok pixka bat geroago, **eztultxo** bat egin ostean-. Aitor Arana

Lokartu aurretik, maindire azpian **eztultxo** batzuk egin ditu, eztarria libratzearren. Itziar Otegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eztultxo batzuk egin (3)

---

ezulertu *iz* ez ulertzea.

Serioegi jarrita, bai baitakigu euskalkien mugen barruan ere gertatzen direla **ezulertuak** . Iñigo Aranbarri

Behin berriro ere, **ezulertua** eta bekaizkoa garaile! Juan Garzia

Ezulertua egin izanak are gehiago sumindu zuen emaztea, eta berriro ere ekin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Itxaroteko esan genion ezpain-ertzetik, itxoin ezak, HP, baina gorrarena egin zuen hark, **ezulertuarena** , eta telefonoa belarriratu orduko garbitu zuen bala bakar bala zuhur batek, krok. Karlos Linazasoro

---

ezulertze *iz* ezulertua.

Bikien begiradetan, harridura, dibertsioa eta, era berean, **ezulertze** erretxin samar bat sumatu zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

---

ezuntsa *iz ipar* ondoeza.

Berantago aldiz, Zelaian, Ihintzeko auzoan, emazte batek **ezuntsa** bat ukan du eta hemen elikoptera deitu behar izan dute, eria egoera larrian zagoelakotz. Herria

---

ezuntsatu, ezuntsa(tu), ezuntstzen da *ad ipar* ondoeza izan.

gabe izan badira, hirugarrena "Geroa" lantegian gertatu da 27 urteko gazte bat **ezuntsatu** da eta Baionako ospitalerat ereman behar izan dute. Herria

---

ezurdura ik **hezurdura**.

---

ezusaiako *izlag* ezohikoa.

Ezusaiako lekuetan egin erreportaiak dira. Berria - Kultura

---

ezuste 1 *iz* ustekabea.

Ezuste hori harridura txundigarri bihurtu zitzaidan Agirreren bizitzan gehixeago arakatu eta maiatzaren 4an sortu zela jakitean. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina bizitza gauza hagitz aldrebesa da, eta **ezuste** asko gordetzen du bere baitan. Karlos Linazasoro

Marteko azala aztertzean giza ezaguerarentzat ulergaitz edo ezezagun diren gauzekin topo egin dutela onartu zuen Squiyresek, **«ezuste** ugari» izan dituztela. Berria - Gaiak

Sentipena neukan ez zela horrenbeste zoparengatik beragatik, ezpada horrek zekarren ardura zantzuarengatik, hasierako **ezuste** guztien ostean. zientzia munduak beste **ezuste** batzuk ere eskaini dizkigu mendean zehar. Urtzi Urrutikoetxea

Funtsean libre izan nahi duzu, etsenpluzko eta **ezuste** gabeko bizi bat eramanik! Piarres Aintziart

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Ezuste handia izan da niretzat. Antton Olano

Orokorretik partikularrera pasatzeak beti berekin dakar **ezuste** kitzikagarririk. Juan Garzia

Orduantxe izan nuen nik neure lehenengo **ezuste** nagusia: Zugarramurdi segituan utzi, eta abuztuaren 1ean bertan Gernikan zain egon beharra gaztigatu baitzidaten. Txillardegi

Neuretzako **ezuste** ona izan da. Berria - Kultura

Iñigo Leizak buruz buruko txapelketako **ezuste** gozoena izaten jarraitu nahi du. Berria - Kirola

Ezuste bakarra inflazioak eragindakoa izan daiteke: gora egiten jarraitzen badu, EBZk ez du baztertzen tasak igotzea. Berria - Ekonomia

Abelen hilketa, hark eragindako erresumin sarkorra, haren ondotik etorri zitzaizkidan **ezuste** eta une desatseginak... hura guztia gero eta urrutiago nuen Hara **ezuste** asaldagarria. Anjel Lertxundi

Kontzientzia kolektibo bati eragingo liokeen agindu bat entzunda bezala desagertzen ziren denak nire ingurutik, batzuk isilik eta agurtxo bat esanda, besteak erlojua begiratu eta **ezuste** tamalgarria jaso duenaren imintzioak eginez. Pako Aristi

Gogoko ez nuen zerbait bazen Kristinaren **ezuste** urdurian. Aingeru Epaltza

Egia esan, bat bateko **ezuste** baten ezean, oraindik ez daukat ezer garbi. Migel Angel Mintegi

Ekintzak zer dira ba? Nolabaiteko **ezuste** arbitrarioak dira. Ander Irizar

Hartan, sekulako **ezuste** itsusia hartu genuen, herr Haspern ikusi baikenuen korridorean aurrera. Anjel Lertxundi

Ezuste betierekoan geratzeraino ikaratu den norbaitengan pentsarazten didate. Oskar Arana

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hori adierazi nionean **ezuste** aurpegia jarri zuen erizainak. Joxemari Iturralde

"Ez nekien seme bat zenuenik", adierazi zuen agureak **ezuste** keinua eginez. Aritz Gorrotxategi

Haren presentziaz orduantxe ohartu izan balitz bezala, **ezuste** itxurak eginez, Abasengana itzuli zen. Patxi Zubizarreta

Ez du sinetsi nahi izan bere begiek ikusten dutena, han daude erro zuriak, hain zuri non kolorearen kontrasteak indar izugarriaren itxura ematen baitie, eta **ezuste**-antza bezalako bat dute, hala esaterik badago. Jon Alonso

4 *ezustean* *adlag*

Erabakia **ezustean** jaso zuen presoak. Berria - Euskal Herria

David Bowie osatzen ari da **ezustean** egin behar izan dioten bihotz ebakuntzatik. Berria - Kultura

Gertakariak **ezustean** gertatu ziren, eta egoera hura ez zuten inola ere ez langileek eragin. Berria - Ekonomia

Ihesaldiak **ezustean** harrapatu zuen senarra. Berria - Harian

Ohartarazpen horrek «**ezustean**» harrapatu dituela esan du Madrilgo gobernuak. Berria - Gaiak

Alexandriako (Virginia) auzitegi federaleko epaileek herenegun ebatzitakoak inor gutxi harrapatu zuen **ezustean**. Berria - Mundua

Ezustean irabazi du film onenaren Oscar saria Crash-ek, ez inork espero ez zuelako, *Brokeback Mountain* faborito nabarmena zelako baizik. Berria - Kultura

Ilargira gizona bidaltzeko Bushen asmoak ez du **ezustean** hartu ESAko zuzendaria. Berria - Gaiak

Erlijio-zinemaren sasoia aspaldi amaitu zela zirudienean, Mel Gibson zinemagilearen *The Passion of Christ* filmak hautsak harrotu ditu **ezustean**. Berria - Kultura

5 *ezustezko iz* ik **ezusteko**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

argitasunak ezustean (18); **argitasunak ezustean harrapatu** (18); **aurka ezustea** (6); **aurkaria ezustean** (5); **aurkaria ezustean harrapatzeko** (5); **bat ezustean** (4); **beste ezuste** (6); **beste ezuste bat** (5); **da ezustea** (7); **da ezustean** (5); **du ezustean** (11); **du ezustean harrapatu** (5); **eguneko ezustea** (4); **egunsentiaren argitasunak ezustean** (18); **erabat ezustean** (4); **ere ezustea** (7); **ere ezustean** (4); **eta ezuste** (8); **eta ezustea** (13); **eta ezustea eman** (4); **eta ezustean** (28); **eta ezustean harrapatu** (6); **ez da ezustea** (5); **ez du ezustean** (8); **ez litzateke ezustea** (4); **ezuste bat** (7); **ezuste eta** (4); **ezuste handia** (11); **ezuste handiena** (4); **ezuste handirik** (5); **ezuste nagusia** (4); **ezustea eman** (49); **ezustea eman dezake** (4); **ezustea eman eta** (4); **ezustea eman nahi** (7); **ezustea eman zuen** (13); **ezustea ematea** (10); **ezustea emateko** (20); **ezustea emateko gai** (8); **ezustea ematen** (14); **ezustea ematen saiatuko** (7); **ezustea eta** (4); **ezustea hartu** (5); **ezustea izan** (41); **ezustea izan al** (6); **ezustea izan da** (17); **ezustea izan zen** (8); **ezustea izango** (6); **ezusteak egon** (4); **ezusteak egon daitezke** (4); **ezusteak eta** (6); **ezusteak gerta** (4); **ezustean egin** (4); **ezustean eta** (5); **ezustean harrapa** (8); **ezustean harrapatu** (139); **ezustean harrapatu du** (11); **ezustean harrapatu gintuen** (4); **ezustean harrapatu nau** (6); **ezustean harrapatu ninduen** (13); **ezustean harrapatu zituen** (4); **ezustean harrapatu zuen** (43); **ezustean harrapatua** (4); **ezustean harrapatuko** (12); **ezustean harrapaturik** (4); **ezustean harrapatzea** (7); **ezustean harrapatzeko** (9); **ezustean harrapatzen** (20); **ezustean hartu** (16); **ezustean irabazi** (10); **ezustearen ondoren** (5); **inor ezustean** (6); **inor ezustean harrapatu** (4); **izugarrizko ezustea** (4); **lehen ezustea** (6); **lehen ezusteak** (4); **litzateke ezustea** (4); **txapelketako ezuste** (6); **txapelketako ezustea** (5); **zen ezustea** (4); **zen ezustean** (5); **zuen ezustea** (5); **zuen ezustean** (21)

---

ezustegarriro *adlag* **

Ezustegarriro samar, demokrazia mendebaldarra eskarniatzen da; totalitarismoak eta Holokaustoak ez dute aipurik txikiena merezi. Joxe Azurmendi

---

ezusteko *(orobat **ezustezko** g.er.) iz* **1** ustekabea.

Hau **ezustekoa**! Antton Olano

Ezustekoa izan zen niretzat, neuk Baionan birrindu nahi nuena bezalako leku bat Louiserentzat hain baliotsu gertatzea. Hasier Etxeberria

Klubak hartutako erabakia **ezustekoa** izan da, Larrazabalek duen adina [...] eta taldean daramatzan denboraldi mordoa aintzat hartuz gero. Berria - Kirola

A-8 autobideko luizia **ezustekoa** izan da, bai erabiltzaileentzat, baita azpiegituraren kudeatzaileentzat ere. Berria - Harian

Nire **ezustekoa** eta nire poza! Joan Mari Irigoien

Batera eta bestera begiratzen zuten, batetik edo bestetik **ezustekoren** bat espero balute bezala. Anjel Lertxundi

Haren begitartea une batez alaitu egin zen, **ezustekoren** bat gertatu balitz bezala. Felipe Juaristi

Pertsonekiko harremanetan, denbora joan ahala gero eta hobeto ezagutzen ditugula uste dugu, haien jokabideak ere asma ditzakegula, harik eta, halako batean, **ezusteko** bat agertzen den arte; nortasunaren alde ezkutu bat izan liteke **ezusteko** hori, ez norbait ezkutukerian edo joko gaiztoan ari delako, baizik eta agertu arte ezezaguna izaten delako. Juan Kruz Igerabide

Ezustekoak egon daitezke. Berria - Kirola

Txekiar Errepublikak **ezustekoa** eman du, Frantziari irabazita. Berria - Kirola

Milan eta Real Madril dira finalerdiak jokatzeko aukera gehien duten hautagaiak, itxuraz, baina Deportivok eta Monakok **ezustekoa** emateko moduko taldea daukate. Berria - Kirola

Afari hartan, bestalde, Adelak **ezusteko** bat eman zigun: barazkijalea omen zela. Izan ere, nork esango zidan neuri biharamunean bertan beste **ezusteko** bat emango zidala Sarak? Juan Kruz Igerabide

Luze gabe, furgonetara itzuli behar izan dugu, eta harakoan Rubenek beste **ezusteko** bat ere eman dit. Patxi Zubizarreta

Eta ez naiz **ezusteko** gutxi igaroa, gertaera hilgarriak ziruditen makina bat igaroa baizik. Josu Zabaleta

Mimoa batuta mugitzen hasi zen, modu mekanikoan, eta zakurrak, sekulako **ezusteko** izuak harturik, ihes egin zuen. Anjel Lertxundi

Poemak topatu zituenean, aurpegia okertu zuen ironiaz, **ezustekoa** ere ezkutatu gabe. Juan Kruz Igerabide

Ezustekoa izan zen, egunerokotik zenbait milia urrundu gintuen uhina. Koldo Izagirre

Araitz Totorikaren gurasoek diotenez, sutea ez zen **ezustekoa** izan; izan ere, «halakorik gerta zitekeela aurretik esaten zuten auzoan». Berria - Euskal Herria

Bizitzak **ezustekoak** ematen ditu. Sonia Gonzalez

Ezustekoak ditugu bizipoz. Berria - Kirola

Idoia **ezustekoen** kutxa iruditzen zait; hasiera-hasieratik liluratu ninduen, ustekabeko alderdiak erakutsiz, kaxa batetik inork espero ez dituen gauzak atereaz, azti batek bezala. Juan Kruz Igerabide

Gizakia -mila **ezustekoren** ezusteko produktu hori denboran, ez Probidentzia orojakileren baten programarena- [...]. Joxe Azurmendi

Egoera hori ezin da **ezustekotzat** hartu, batez ere, jokalarien kalitatea ikusita. Berria - Kirola

Faktore gehiegi amezketarraren aurka, dirua ere kontra, oso kontra 100-45i, eta **ezustekoan** sinesten zuten gutxi harmailetan. Berria - Kirola

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Hemen, **ezusteko** berria. Koldo Izagirre

Ezusteko handia hartu nuela neuk ere. Anjel Lertxundi

Eta **ezusteko** galanta jaso nuen. Josu Landa

Ezusteko desatsegin bat izaten da jaiotza, goxotik behar arrotzera. Markos Zapiain

Ezusteko txiki bat, zirrarak, elkarrenganako interesa besterik ez zegoen gure artean. Jon Muñoz

Goiz batez, baptistarekin gosaltzen ari naizela, horra non esertzen zaigun Sabeth gure mahaira: **ezusteko** pozgarria niretzat, Sabeth, bere bakero beltzekin. Joxe Austin Arrieta

Ezetz esateko zer arrazoi zuen galdetu nion, eta **ezusteko** ederra harrapatu nuen. Josu Zabaleta

Eta **ezustekoa** izugarria izan da, zu ikusi zaitugunean. Joan Mari Irigoien

Egilea bera izan zen lehen **ezustekoa**. Berria - Kultura

Eguneko **ezustekoa**, aldiz, Esloveniako selekzioak eman zuen. Berria - Kirola

Bigarren geratzea eta bigarren itzulira igarotzea, ez da aparteko **ezustekoa** izan niretzat. Berria - Euskal Herria

Hemendik aurrera lortzen duena ez da inolako **ezustekoa** izango. Berria - Kirola

Ezkon-hitza emateak sekulako **ezustekoa** izan beharko liken neskatxa gazte batentzat, ezusteko atsegina edo ezatsegina, nork eskatzen dion. Antton Olano

Julio Rekexok ustekabe handia jaso zuen, erabateko **ezustekoa**, Lucy Bereziortua etxeko ate aurrean ikusi zuenean. Joxemari Iturralde

Onik iritsi ginela diodanean esan nahi dut ez zitzaigula inolako **ezustekorik** gertatu. Anjel Lertxundi

Amari galdetu nion zenbat neukan aurrezturik, eta berebiziko **ezustekoa** eman zidan, inoiz ez bainintzen arduratu hartaz. Juan Kruz Igerabide

3 *izlag* ustekabekoa.

Ezustekoa, oso. Juan Garzia

Wilmarth andereñoak mahai baten gainean jarri zuen koktela, eta behera jaitsi zen Maryrengana, **ezusteko** gonbidatuen berri ematera. Mirentxu Larrañaga

Ezusteko zerbait daukat gaur gauerako zuretzat, Algernon. Antton Olano

Ezusteko poz bat emateko, altzari berriak erosten dizkidate, tea hartzeko mahaitxoa, idazmahaia, besaulkiak eta sofa bat, oso-oso politak denak. Josu Zabaleta

Ezusteko zorigaitzen batek soilik larrituko luke. Itziar Otegi

Gurasoen herrira joatea bururatu zitzaidan, haiei **ezusteko** ikustaldi bat egitera. Patxi Zubizarreta

Ezusteko haserrealdiak minduta utzi zuen Sara. Joan Mari Irigoien

Nire hitzek beren baitan gordetzen zuten mendeku tikiak **ezusteko** erantzuna bildu zuen. Aingeru Epaltza

Ez dut ukatuko **ezusteko** erabaki horren atzetik nire ausardia nabarmendu nahi nuela Dabiden aurrean. Patxi Zubizarreta

Dabid ez zen ohartu ere egin nire **ezusteko** etorreraz. Patxi Zubizarreta

Handik zortzi egunera, Müller andrearengandik berria jaso nuen ezen Lothar Müller jaun doktorea **ezusteko** heriotzaz zendua zela, hirurogei urteko adinean. Juan Garzia

Graziazko une ahaztezinak, loriazko aldi labur-laburrak, **ezusteko** mirariak. Oskar Arana

Merkatuari behatu behar diozu eta maiatzaren lehenaren ondoren Zurichera joateko prest egon, **ezusteko** aukerak agertzen badira. Ramon Etxezarreta

Letiziari **ezusteko** argia piztu zitzaion burmuinean. Xabier Mendiguren Elizegi

Hilik gertatu zen, kontatu zidatenez, **ezusteko** istripu bitxi bat zela bitarteko. Mirentxu Larrañaga

Bat-batean, **ezusteko** ideia mingarri bat piztu zitzaion buruan: bere okerra ez ote zen izango xakean jokatuz arreta exekuziotik aldaratu nahi zuela, bere burua kondenatu guztiek heriotzari dioten beldur saihestezinetik babesteko? Jose Morales

Zein **ezusteko** aitaren eta amarengandik sortua nintzen? Joxan Elosegi

4 (izenondo gisa)

Ezustekoa, harrigarria, gehiegizkoa, izugarria. Jon Muñoz

Han, aurreneko berri **ezustekoa**. Jon Muñoz

Luperen begietan pausatu zenituen zeureak irmo, arnasestuka, eta haren barneko hezegunean zeharo husteko tenorea atzeratu zizun pentsamendu **ezusteko** batek: Zozoa naiz, zozoa behar dut izan, non aurkituko dut, egiazki, halako beste emakume bat? Hasier Etxeberria

Nola aurre egin gastu **ezusteko** hari? Karlos Linazasoro

Agente baten ekintza **ezusteko** baten gorabeheran gertatzen da guztia. atzera ere zaparrada **ezusteko** batek harrapatu gintuenean, non babesturik ez genuela, telefono kabina batera jo genuen. Juan Garzia

Gure bidaiari amaiera **ezusteko** eta ziur bat emanarazi ez ezik, denbora ezin laburragoan lortu zuen hori egitea. Oskar Arana

Operako entseiu gelara eraman ninduen hurrena, bera nire begietara are desiragarriago egiten zuen ausarkeria **ezusteko** batez. Harkaitz Cano

-Zer? -egin zuen oihu printzeak, elkarrizketaren nondik norakoaren aldaketa **ezusteko** horrek erabat zurturik. Jose Morales

Liluratu egin gintuen Txatoren irtenaldi **ezusteko** hark, izenak ozentasun sorgina zeukan. Koldo Izagirre

Amak egundoko kolpea jaso zuen; aitaren heriotza bat-batekoa iruditu zitzaion, erabat **ezustekoa**, ez baitzen batere jabetu aldez aurretiko gainbeheraz. Juan Kruz Igerabide

Baina osabaren ateraldi hura guztiz **ezusteko** eta abisurik gabea izan zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezustekoak izan ziren hartutako erabakiak. Koldo Zuazo

Gertakari txiki **ezusteko** hark nire baitan sortu zuen ondoeza ez dut orain aditzera emango. Karlos Linazasoro

Iruñan erakutsi zidaten, ordea, ezen munduan ezustekorik ez zegoela, zeren ezustekorik **ezustekoena** ere Jainkoaren usteko baitzen. Joan Mari Irigoien

Ez, ez, hori baino **ezustekoagoa**... Josu Landa

5 ***ezustekoan*** *adlag* ezustean.

Isilaldi luze bat, **ezustekoan** harrapatu ditu. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

azken orduko ezustekorik (8); **baina ezusteko** (8); **baina ezustekoa** (7); **baina ezustekorik** (5); **beste ezusteko** (15); **beste ezusteko bat** (11); **bigarren ezustekoa** (5); **da ezusteko** (6); **da ezustekoa** (8); **da ezustekorik** (7); **dira ezustekoak** (4); **du ezustekorik** (4); **edozein ezustekori** (4); **egundoko ezustekoa** (6); **egundoko ezustekoa eman** (5); **eguneko ezustekoa** (4); **ere ezustekoa** (6); **ere ezustekoa izan** (4); **eta ezusteko** (36); **eta ezustekoa** (13); **eta ezustekoak** (9); **eta ezustekorik** (16); **eta ezustekorik ezean** (12); **ez da ezustekoa** (6); **ez da ezustekorik** (5); **ez litzateke ezustekoa** (4); **ez zen ezustekoa** (5); **ez zen ezustekorik** (24); **ezusteko atsegina** (9); **ezusteko atseginak** (5); **ezusteko bat** (33); **ezusteko bat baino** (4); **ezusteko bat eman** (5); **ezusteko bat izan** (4); **ezusteko bisita** (5); **ezusteko ederra** (10); **ezusteko ederra hartu** (5); **ezusteko emaitzak** (4); **ezusteko eta** (11); **ezusteko galanta** (13); **ezusteko galanta eman** (4); **ezusteko garaipena** (4); **ezusteko garaipena lortu** (4); **ezusteko gutxi** (4); **ezusteko handi** (16); **ezusteko handi samarra** (11); **ezusteko handia** (32); **ezusteko handia eman** (7); **ezusteko handia hartu** (7); **ezusteko handia izan** (8); **ezusteko handiena** (10); **ezusteko handirik** (18); **ezusteko handirik ezean** (9); **ezusteko nagusia** (7); **ezusteko polita** (4); **ezustekoa da** (4); **ezustekoa eman** (79); **ezustekoa eman du** (15); **ezustekoa eman duen** (5); **ezustekoa eman nahi** (6); **ezustekoa eman zuen** (28); **ezustekoa eman zuten** (5); **ezustekoa ematea** (5); **ezustekoa emateko** (34); **ezustekoa emateko aukera** (5); **ezustekoa emateko gai** (4); **ezustekoa ematen** (12); **ezustekoa ematen saiatuko** (7); **ezustekoa ez** (5); **ezustekoa hartu** (6); **ezustekoa izan** (59); **ezustekoa izan da** (21); **ezustekoa izan zen** (18); **ezustekoa izango** (9); **ezustekoa litzateke** (4); **ezustekoak egon** (4); **ezustekorako zirrikiturik** (6); **ezustekorik egon** (7); **ezustekorik eman** (5); **ezustekorik ez** (36); **ezustekorik ez badago** (8); **ezustekorik ezean** (69); **ezustekorik gabe** (8); **ezustekorik gertatu** (8); **ezustekorik handiena** (8); **ezustekorik izan** (28); **ezustekotzat jo** (4); **hainbat ezusteko** (4); **inolako ezustekorik** (4); **lehen ezustekoa** (6); **litzateke ezustekoa** (4); **nolako ezustekoa** (4); **orduko ezustekorik** (8); **orduko ezustekorik ezean** (4); **txapelketako ezusteko** (6); **txapelketako ezustekoa** (7); **zen ezusteko** (5); **zen ezustekoa** (11); **zen ezustekoa izan** (5); **zen ezustekorik** (25); **zen ezustekorik egon** (4); **zen ezustekorik gertatu** (4); **zen ezustekorik izan** (16); **zuen ezusteko** (5); **zuen ezustekoa** (7)

ezustetu, ezustetzen du *ad* ezustean harrapatu.

Halako batean, 1936an, holandesen txirrinduzaletasuna komentatzera doala, ez zer eta ez hura, arrazari buruzko kontsidero kritikoekin **ezustetzen** gaitu. Joxe Azurmendi

---

ezustezko ik **ezusteko**.

---

ezzz *(orobat **ezzzzzzz**) adlag adkor* ez.

- **Ezzz** ..., mesedez. Iñaki Mendiguren

Ez!, erraietatik atera oihu kraskatua ospitaleko kirofano eta ondoko geletara hedatu da, **ezzz** !!! Jose Angel Irigaray

- **Ezzz** ! -intziri egiten zuen-. Iñaki Mendiguren

- **Ezzzzzz** ! -oihu egin zuen Ronek, bolanteari bira emanez. Iñaki Mendiguren

---